Egungo Euskararen Hiztegia

—A—

[bertsioa: 2024-01-12]

---

a[1] **1** *iz* euskal alfabetoko lehen letra; letra horren izena.

A letratik hasi eta Z letrara bitartean hedatzen ziren ilarak. Aritz Gorrotxategi

Parisen dagoeneko... -**a** ahoskatuz esan ohi da. Isabel Arrigain

Bokalak (**A**, O, I...) ezezagunetarako; kontsonanteak (B, C, D...) ezagunetarako. Jon Muñoz

Ez nuen klarki bereizten ahal zer zen, bakarrik zazpi-zortzi letra zituela eta **"A"** zela lehenbizikoa. Aingeru Epaltza

-Begira **'A'** hau zer polita den... -esaten zion don Justok. Joan Mari Irigoien

Idazten den lehen letra **"a"** da. Bernardo Atxaga

-Horrela izanik, aiene, ni ezkondua izaki eta aurreneko letrak **A**, B. D ere ez jakin. Patxi Ezkiaga

2 ***a bildu*** *(orobat* ***arroba*** *g.er.) iz* posta elektronikoko helbideean, erabiltzaile izenaren eta domeinuaren artean ezartzen den ikurra.

Morse kodea aldatzea erabaki du Telekomunikazioen Nazioarteko Batasunak, **a bildua** sartzeko. Berria - Gaiak

Euskaltzaindiakerabaki du posta elektronikoaz hainbertze erabiltzen den @ ikurra (espainolez **"arroba"** eta frantsesez **"arrobase"** deitzen dena) "a bildua" deituko dela euskaraz. Herria

3 ***A bitamina***

Ume askok bitamina eta mineralen gabezia nabarmena dute; iodoa, **A bitamina** eta burdina falta dituzte kasu askotan», adierazi zuen atzo Unicefeko zuzendari Ann Venemanek. Berria - Gaiak

Badira, esaterako, beta karoteno **A bitaminaren** aitzindaria kopuru nabarmena duten arroz eta arbi-hazi motak. Berria - Gaiak

Kalkulu eta esperimentu asko eta asko egin ondoren, usaimen-pigmentuak **A bitaminaren** antzeko egitura kimikoa izan behar zuela proposatu zuen Wright-ek. Irene Aldasoro

4 ***A eraztuna*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***33*** *agerraldi)*

A eraztuna Saturnoren eraztunetako bat da. ETC-entziklopedia

A eraztuna eratzeko Robinsonen anelazioa 18-11 ataleko adibidearen oso antzekoa da; adibide horretan, 2-metilziklohexanona kondentsatu egiten du 3-buten-2-onarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

-cisen alboko glikol-funtzio bat, **A eraztunaren** C-2an eta C-3an. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***A eredu***

Sare bietan "**A eredua** nabaritzen da indar handiz lanbide heziketan», esan zuen Kontseiluko lehendakariak. Berria - Euskal Herria

Gure garaian **A eredua** besterik ez genuen eta nik neuk gaztetan ikasi behar izan nuen euskara AEKn. Berria - Euskal Herria

Txikitan errazagoa da, baina helduagoak badira, gehienak **A ereduan** sartzen dira. Berria - Harian

Baxoari buruz joanez, zenbaki horiek haatik bertzelakatzen dira: %29 (D eredua), %2 (B eredua) eta %69 (**A eredua**). Herria

EAEko legeak dio nahitaezko hezkuntzatik ikasleak hizkuntza ofizial bien jakitun irten behar duela; baina **A ereduak** ez du ikasle bakar bat ere euskaldundu; beraz, legez kanpokoa da nabarmen-nabarmen. Markos Zapiain

6 ***A faktore*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***63*** *agerraldi)*

A faktorea, "Streptomyces griseus" espeziearen estreptomizina-ekoizpenaren bidezidorrean eta esporulazio-prozesuan agertzen den faktore autoerregulatzailea da. ETC-entziklopedia

Abiadura-konstantearen unitateak ditu esponentzialaren aurreko **A faktoreak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mol kopuru bakoitza **a faktore** baten bidez handitzen badugu, sistemaren tamaina faktore berarekin handitzen da, eta gauza bera gertatzen da X propietate estentsiboaren balioarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hormona horiei a eta **a faktore** deritze, eta gurutzatzen ari diren legamia-zelulek jariatzen dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Faktore bakarreko talde arteko diseinuetan test hori jatorrizko F testaren talde arteko (kasu horretan **A faktore** nagusiaren) berreturen baturan oinarritzen da, izendatzailean beharrezko eraldakuntzak eginez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurrenak, **A faktoreak** ekarritako aldakortasuna edo taldeen arteko aldakortasunak, aldagai askeko mailen arteko aldakortasuna adierazten du. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 ***A gripe*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***291*** *agerraldi)*

Ez zarete **A gripeaz** oroitzen? ETC-literatura, saiakera

Iazko neguan, **A gripeak** sortu zuen alarmarekin, milioiak eta milioiak eralgi zituzten gobernuek ezertarako ez ziren txertoetan. ETC-literatura, saiakera

Mediku askok jarrera ezkorra dute **A gripearen** kontrako txertoa dela eta. ETC-prentsa

Gabonetako loteriaren sukarra **A gripea** baino kutsakorragoa da egunotan. ETC-prentsa

Beldur ziren **A gripea** ez ote zen harrapatu nuena. ETC-prentsa

Aurrean duzue **A gripearen** aurkako txertoa hartzea gomendatzen duen kartela. ETC-prentsa

Noraezean Bilbo Basketeko sei jokalari, **A gripeak** jota, galduta, buruko minarekin amorratuta. ETC-prentsa

14 urtetik beherakoek **A gripearen** txertoa jasoko dute urte bukaeran. ETC-prentsa

Osasun-krisiei buruzko gizarteirudikapenak: **A gripearen** kasua Mexiko eta Espainiako hedabideetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

A gripearen pandemiaren lehen kasua Euskal Herrian 2009ko apirilaren 26an eman zen jakitera. Mexikora bidaian joandako gizonezko bat, Gurutzetako Ospitalera eraman behar izan zuten. ETC-entziklopedia

Horiei tuberkulosia eta antzeko eritasun gaixotasun endemiko batzuk, eta XXI. mendeko 2009ko **A gripearen** pandemia eta COVID-19 pandemia Euskal Herrian gehitu behar zaizkie. ETC-entziklopedia

XXI. mendean, SARS (2002) eta **A gripearen** 2009ko pandemietan -haien fokua Asian egon zen-, maskaren erabilpena herrialde horietan are gehiago hedatu zen. ETC-entziklopedia

8 ***A immunoglobulina*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***17*** *agerraldi)*

A immunoglobulina (Ig A) organismoaren jariakin-mukosetan (listua, malkoak, mukiak, ama-esnea...) dagoen immunoglobulina da. ETC-entziklopedia

Badira germenen erasoen aurka gorputza babesten duten faktoreak, listuan presente dagoen **A immunoglobulina** esaterako. ETC-prentsa

A immunoglobulina (IgA) mukosako ehun linfoideetan ekoizten da, epitelioan barrena garraiatzen da, mikroorganismoei lotzen zaie mukosa-organoen argietan eta neutralizatu egiten ditu (8-13. irudia). ETC-zientzia, zuzenbidea

9 ***a itsatsi*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***21*** *agerraldi)*

Hitz batzuek eta zenbait izen berezik, "a itsasia" dute, hau da, berezkoa dute amaierako "a" eta ez da mugatzailea. Hitz batek **a itsatsia** duen ala ez jakiteko, hiztegian begiratu behar da. ETC-entziklopedia

"Labana" hitzak " **-a itsatsia** " du. ETC-entziklopedia

Abiatze bat mugagabean, bere **a itsatsita** galdua duela. ETC-prentsa

Esate baterako, Nikolas Ormaetxea "Orixe"ri bere meza liburu ospetsua egin zuenean buruan sartu zitzaion pluralizantea kentzea, eta "gu hurbiltzen gatzaizkizu" esan beharrean, "gu hurbiltzen gatzaizu" zioen; gainera, " **a" itsatsiak** kendu zituen... ETC-prentsa

Berriemaileak dio estatua (- **a itsatsiarekin**) eraistean, manifestatzaileek zera adierazi nahi dutela, Errusiarekin loturarik izan beharrean, Europarekiko harremanak sendotzeko borondatea. ETC-prentsa

Delako **'a itsatsi'** famatuaz ahaztuko gara hemen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina Txillardegik euskaraz kontatu zuen, eta euskara batuaren esparruan azpimarratu zuen mugagabea gorde eta ongi erabili beharra, ' **-a" itsatsia** duten hitzen berezitasuna, etab. ETC-literatura, saiakera

Iparraldekoetan ezin jakin genezake nola den, aita izanik atzean geratzen dena (gainera hitz horrek **-a itsatsia** darama eta mugagabean erabiltzen da, norberarena bada). ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *A koentzima* *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

A koentzima (CoA edo CoA SH laburtua) gantz-azidoen beta oxidazioan eta biosintesian parte hartzen duen garrantzi handiko koentzima da. ETC-entziklopedia

Orduan, organismoa gantz-azidoetatik energia lortzen saiatutakoan, azetil-CoA metatzen da **A koentzima** askerik geratzen ez den arte, oxalazetatorik eza dela eta. ETC-zientzia, zuzenbidea

A koentzima deritzon bitarteko biologiko garrantzitsu baten merkapto taldea da funtsezko osagaietako bat (A koentzimaren laburdura HSCoA da; 19-4 irudia). ETC-zientzia, zuzenbidea

Azido lipoikoa, **A koentzima** , tiamina pirofosfatoa, glutationa, biotina, 5'-adenililsulfatoa eta 3'-fosfoadenosinaren osagaia. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 *A Lineal*

Minoiko Ertain II-tik Minoiko Ertain III-rako trantsizioan bi idazkera hieroglifiko banatu, aurreko denboraldiaren hasieran aldi berean agertu zirenak, bat-batean eta erabat ordeztu zituen beste idazkera lineal batek (**A Linealak**) 14. Iñaki Mendiguren

12 *A lipoproteina* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Gehienetan lipoproteina espezifiko bat, **A- lipoproteina** zehazki, neurtzen da kardiopatien arrisku faktore garrantzitsua delako. ETC-entziklopedia

13 *a organiko*

Euskaltzainek ahozko euskal tradizioaren kontra toki izenetan - **a organikoa** jartzeko erakusten duten grinaren lepotik barre egiten du Patziku Perurenak- a orgasmikoa aipatzen duenean. Iñaki Arranz

14 *A probitamina* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Azenarioa betakaroteno bat da (**A probitamina**), zurgatu ondoren organismoak A bitamina bihurtuko duena. ETC-prentsa

Zitrikoek, adibidez, C bitamina, **A probitamina** eta azido foliko asko daukate, eta horregatik gomendatzen du egunean jaten den fruta anoetariko bat zitrikoen taldekoa izatea. ETC-prentsa

Arroz-landareen hostoetan p-karoteno (**A probitamina**) asko sintetizatzen bada ere, arrozaren endospermoak -alearen parterik handiena osatzen du- ez ditu normalean p-karotenoaren biosintesi-bidezidorraren hiru urrats egiteko behar diren geneak espresatzen (2.20A IRUDIA). ETC-zientzia, zuzenbidea

Kantaxantinak **A probitamina** izaera du, hau da, bitan zatitu eta A bitamina erretinola (A bitamina) sortzen da. Bestalde antioxidatzaile oso eraginkorra da eta erradikal askeek ADNari eragindako kalteen konponketa estimulatzen du. ETC-entziklopedia

15 *gripearen A birus* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Alemaniako MSZ Institutuak, ordea, **gripearen A birusaren** kontrako (kasuen %65en sortzailea) bide eraginkorra aurkitu duela esan du. ETC-prentsa

Gripearen A birusaren kasuan, harizpi bakarreko zortzi zati linealetan banatuta dago genoma, eta zatien tamaina 890 eta 2.341 nukleotido bitartekoa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

a[2] 1 *interj* ustekabea, harrimena, miresmena, oinazea... adierazteko erabiltzen den hitza. ik**o**[2]; **oi**[1]; **ai**.

A , ez zidan horrelakorik entzun nahi ikaskide aberatsak. Pello Lizarralde

A , bai, zera... -harik eta erabakia bereganatu arte-: Ez, ez ditut belarriak estali, ezta estaltzeko asmorik ere! Joanes Urkixo

-A bai!... Extrapolazio ausarta! Piarres Aintziart

-A , bai -esan zuen Terrik-. Koro Navarro

-A bai?, hitz hori eman zenuen? -galdetu zuen bizi-bizi-. Ander Irizar

-A , hori bertzerik duk! Eta hire aitamak? Michel Oronoz

-A , ba nire atean jota ez dute asmatu. Anton Garikano

-A , bai? Oraintxe ikusiko duzue...! Joan Mari Irigoien

2 *a ze parea*

Gure solasa entzunda irri egin digute bertzeek: **A ze parea** . Xabier Montoia

" **A ze parea** ", pentsatu nuen nire artean. Edorta Jimenez

-Atzo ikusi al zenuten Jurado telebistan? **A ze parea** ... Jon Maia

3 *a zer* *(**310** agerraldi; orobat **a ze**, **178** agerraldi)*

A zer nolako arbitrajea! Sonia Gonzalez

A zer plazerra izanen dudan mendeku harturik! Jon Muñoz

A ze esanguratsuak elkarri zuzentzen dizkieten begirakuneak, burlaizezko zirimolaren erdian! Berria - Kultura

-Beharrik ez zaie alkoholemia azterketa egiten hildakoei, bestela **a zer** zigorra hartu beharko zuten geure bi lankideek! Koldo Izagirre

A ze gezurtia! Orain sinestera heldu direna da hori! Berria - Euskal Herria

A ze lanak! Denak beste gizon txiki bibotedun horri eman genizkion, ea horrela kaka ondo egiten duen... Jon Maia

A ze aurpegia jarri behar duten alderdiko handi-mandiek maritxu alu bat bidaltzen diedala ikusita! Alberto Ladron Arana

-A zer gauza inportantea egin duzuna! Agurtzane Juanena

-A zer azeria zaren negoziotan, Lucy -diot ahopetik. Oskar Arana

-A zer ikara eman didazun! Aingeru Epaltza

Ulises hemen balitz, **a zer** zigorra emango liekeen ezkongai horiei guztiei, Telemakok lagunduta! Juan Kruz Igerabide

Axenario gure artean izanda, **a ze** inbidia besteek! Itziar Otegi

4 *a zer azeria*

-A zer azeria zaren negoziotan, Lucy -diot ahopetik. Oskar Arana

5 *a zer nolako* *(**44** agerraldi; orobat **a ze nolako**, **3** agerraldi)*

A zer-nolako barre eta algarak egin zituzten egun hartan arratsaldean Gasteizko Dato kalean ibiltzera ateratakoek! Berria - Euskal Herria

- **A zer nolako** ohoreak egin dizkioten honi heldu garen lurralde guztietako gizakiek! Juan Kruz Igerabide

Eta **a zer nolako** aurpegiera eta keinuak, zera esanez bezala: ich weiss! Fernando Rey

Zelaietan **a ze nolako** lasterraldiak egiten dituen! Gotzon Garate

Gainera, **a zer-nolako** senargaia duen! -Ruthek inozoki egin zuen barre. Lopez de Arana

A zer nolako suertea nuen esan zidan, italieraz; ez ninduelako ingelesa ulertzeko gai ikusten, antza. Ramon Saizarbitoria

A zer-nolako arrainak aterako ditudan! Itziar Otegi

---

a[3] latinezko preposizioa, zenbait esamolderen parte dena.

1 *a cappella* *(orobat **a capella**)*

Soprano-ahots bat goratu zen lantegian, eta **a cappella** abestu Bachen kantata bateko aria: Ich habe genug. Jon Muñoz

Zuberotarrek 1950eko hamarkadan grabatu kantuak berreskuratu ditu Elkarrek 'Xiberoko kantüak' diskoan; garai hartako ahotsak eta herri kantu ak dakartza, guziak **'a cappella'** direla Berria - Kultura

Gainera, lehiaketa bi sail nagusitan banatu dute: **a cappella** -koa eta soinu laguntzakoa Berria - Kultura

Mendietan gaindi kantu herrikoiak **a cappella** kantatzen dabilen artzaina. Berria - Kultura

Kontzertua: Xuberotar kantuak **a cappella** . Herria

2 *a fortiori*

Orain, historian izandako eraso arrakastarik gabeko erasoen emaitzen adibideak hartzen baditugu, ez garaile erantzundakoarenak, porrot egiten duen erasotzailearenak baizik, ohartuko gara **a fortiori** latzak izan zirela ondorengo erronkak. Iñaki Mendiguren

A fortiori , heldu baten zelula-guneak, beraz, ezgauza dira hartarako. Juan Garzia

Jakina, horrelako "estetika" bat, ahal den espezifikotasun gutxien duena, pinturarako bezala musikarako ere berdin balioko duena, ezin izan daiteke historian zehar izan diren estetika desberdinen azterketa bat, ez, **a fortiori** , estetika arauemaile bat. Josu Zabaleta

Bestalde, **a fortiori** haren zertasuna ezin daiteke osatua izan, horrela atributuak alderdi biak adierazi dtzan, eta, are arrazoi handiagoaz, ezin ukan dezake atributuaren bidez adieraz daitekeen akzidenterik ere. Xabier Kintana

3 *a posteriori*

Baina **a posteriori** konturatu naiz horretaz guztiaz. Anjel Lertxundi

Gaiez, kokalekuz, anekdotaz desberdinak; **a posteriori** irakurrita, sortzez iturburu beretik sortuak, antolamenduz helburu berera bideratuak: etsimenetik etsimena adieraziz etsimena gainditzeko ekimen etengabeak. Josu Zabaleta

Generoei buruzko diskurtsoa **a posteriori** dator. Berria - Kultura

Orain Iraken antzeko zerbait gertatzen ari da eta oso **a posteriori** ari gara ikusten. Berria - Harian

Hori **a posteriori** egitea onartzen bada, eta de facto onartzen da, zergatik ez onartu aldez aurretiko "operazio" sinpleago eta sufrimendu gabea helburu bera iristeko? Pello Salaburu

Eta martiri izaiteko jaio denak jakin beharko likek, bertzalde, ezen martiriak eta martirien odola **a posteriori** direla emankorrak, noiz eta haien kausak aitzina egiten baitu.... Joan Mari Irigoien

Hala ere, adierazpen horiek denak **a posteriori** jaso dira, Txikiaren azken beltza ezagutu ostean. Xabier Mendiguren Elizegi

Azken demonstrazio horretan Jainkoaren existentzia " **a posteriori** " erakutsi nahi izan dut, demonstrazioa errazkiago uler zedin. Piarres Xarriton

Iragarpena **a posteriori** da igarpen -"Ene, asmatu ere, asmatu egin zuen!". Edorta Agirre

Gertaeren irakurketa engainagarria zen hura, **a posteriori** eginiko irakurketa. Jon Muñoz

4 *a priori*

Irudiak - objektu ikusgarria, begiak, urrutitik pertzibitzeko organoak, organo hotz horrek ikus dezan sortua izanik - atsegina eman dezakeenik ez da ageriko gauza, **a priori** behintzat. Josu Zabaleta

Ahalmen hauek guztiek erabilera enpirikoaz gain transzendentala ere badute, formari besterik ez dagokiona eta **a priori** ahalgarria dena. Ibon Uribarri

Baina, **a priori** , ez da ikusten zerk ezar liezaiokeen ezaguerari halako muga, eta horrenbestez bere gisa gelditzera behartu ikerkuntza. Juan Garzia

Silabatan egindako zatiketa ere ez dagokio inolaz ere **a priori** hizkuntzari. Isabel Arrigain

Gure galderari emandako **a priori** -zko erantzun emozional-pare bat geratzen zaigu, zibilizazioen euren lekukotasuna aztertu baino lehen kontuan hartu beharrekoa. Iñaki Mendiguren

Integrazio proiektu onest bat logikoki inposiblea da, beraz, **a priori** ?). Joxe Azurmendi

A priori , Silveira bertzeen gainetik dagoela ematen du. Berria - Kultura

Lehenengo eta behin, Jaurlaritzarekin **a priori** bat lantzea proposatzen dut, arazo ekonomiko jakin batzuei nola aurre egin inprobisatzen ez egoteko. Berria - Euskal Herria

Gaur egun, kulturan eta erlijioan gero eta aniztasun handiagoa dago Espainian, eta **a priori** oker asko ere dabiltza bueltaka. Berria - Harian

Alde biko laguntza ez bezala, alde askoko laguntza, guztizko laguntzaren %30 dena, ez dago **a priori** herrialde emaileen merkataritzazko edo estrategiazko helburuen mende. Koro Navarro

Ez du, bada, horrek erran nahi Jainkoaren existentzia ez datorrela " **a priori** " oinarri berberetik. Piarres Xarriton

Eta hainbat euskaldun ezaguni galdetegi bat helarazten dionean ere - Koldo Mitxelena, Jose Antonio Loidi eta Antonio Valverderi -, euskararen bidez frogatu behar duen **a priori** baten bidez abiatutakoa da galdetegia; egiaren bila abiatu baino, bere egia estetikoa konfirmatuko dioten iritzien eta adibideen bila ari da. Anjel Lertxundi

Gizakiaren jardunari buruz, Kanten ustezko **'a priori'** batez arrazoimenari dario dena: legea, inperatiboa, arrazoizko beharra: "Honetan datza karaktere moralaren balioa, konparaziorik gabe garaiena dena: ongia egiten duela ez joerek eraginda, beharrak baizik". Jenaro Garate

A priori ez dut izaten genero-errebindikaziorik egiteko asmorik, edo hau edo bestea esaten pose koiuntural gisa, egoera batzuen aurrean ni neu kokatzeko idazten baitut. Ana Urkiza

" **A priori** arrazoituz gero, edozer gauzak dirudi gai beste edozer sortarazteko. Patziku Perurena

Bazirudien sekula ez zuela seme-alabarik sortu nahi izan zeren, esaten zuenez, seme-alabak ekartzeko gogo handia izan arren, inork ez baitaki, **a priori** , egiteko gauza den ala ez, gizakien kontroletik kanpoko kontu zehazgaitzek baldintzatzen baitute hori. Bego Montorio

Etsaiak bere lekuak **a priori** defenditzen ditu beti. Josu Zabaleta

5 *a tempo* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

" **A tempo** ": uneko tempo aldaketa baten ondoren, pasartean erabiltzen ari zen tempora itzultzeko. ETC-entziklopedia

(**a tempo**) Baina neure izen ona ostu nahi didana... ETC-literatura, saiakera

Ritardandoa bukatu da eta **a tempo** doa orain, eta ez hori bakarrik, baizik eta denbora azkartzen, notak iluntzen, eta gaua etortzen hasi da Musika Eskolako pianoko gelara, arratsaldeko bostetan, ez horrenbeste Chopinen Nokturnoen kulpagatik, ezpada Marenek berak ekarri duelako gaua sabaipera. ETC-literatura, saiakera

---

aa *(orobat **aaa**, **aaaa**, **aaaaa** g.er. eta **aaaaaa** g.er.)* **1** *interj* zerbaitez konturatzea adierazteko erabiltzen den hitza.

Ilargia, berriz? **Aa** !, horri egunean eguneko martxan erreparatu behar zaio. Pello Zabala

Aa ! Barkatu, barkatu! Goiko latin bertsoa bota eta gero, ia-ia itzulpenik gabe utzi zaitut. Pello Zabala

-Aaa ! Eta nolakoak dira haiek? Pablo Sastre

Aa !, eta beste kontu bat: ilbeheran, lan zailtxoenak ere, errazago menderatuko dituzu, borondateak aiseago egiten du lan, ilargia beheraka doanean; gorputzak indarrerako enbarazu guttiago duke, dirudienez. Pello Zabala

Hark, hariaren beste puntan, motel aire batekin beti gauza bera errepikatzen zuen: **"Aaa** bon, **aaa** bon, **aaa** bon...". Daniel Landart

-Aaa ! -esan zuen izeba Margek, ezpainak miaztuz eta brandy-edalontzia, hutsik, mahaian utziz-. Iñaki Mendiguren

Aaa ... mutu bat ateratzen dute biek, Sophie-k interesatuaren begirada batez lagundurik, Gérard-ek begitarte huts batekin, gaiaz duen arreta guziaren lekuko. Eneko Bidegain

2 oi!

Aa ze ikuskizuna ikusi berri dudan! Berria - Kirola

Hortxe, hortxe; ez, beheraxeago; ezkerrerago; bai, hortxe, fuerteago; **aaa** ! Luis Elberdin

---

aaa ik **aa**.

---

aarondar *izond* Aaronena, Aaroni dagokiona.

Aarondar apaizok, izan konfiantza Jaunarengan: bera duzue laguntzaile eta babesle! Elizen arteko biblia

Aarondar apaizok, bedeinkatu Jauna! Elizen arteko biblia

---

aba *iz* elizgizonen titulua, izen-deituren ondoan ezartzen dena. ik **aita 4**; **anaia**.

Euskaltzaindiak batasunari begira antolatu zituen batzarretan, berriz, Ayengiz'tar Iñaki **Aba** Txotiñoduna agertu zen jatorrizko euskarara itzultzearen alde. Koldo Zuazo

---

ababor *(ETCn **196** agerraldi; orobat **abaor** g.er.)* **1** *iz* ontziaren ezkerraldea, brankara begiratuz. ant **istribor**.

Eta **ababorreko** bandatik galduko da balea. Joseba Sarrionandia

Ánimas ontzian guri meza eman ziguna txopako gazteluko **ababorreko** hegalpean zegoen, liburutxo baten harira ahopeka otoi egiten; itxuraz, behintzat. Edorta Jimenez

Karrakaren **ababorreko** amulako azken txikotari korapiloa neuk egin nion, eta oinen azpiak lehorrean nituelako, bestela zin egingo nukeen ontzian segitzen nuela. Edorta Jimenez

Isasiren ganbara madarikatua, sukar ustelak jo gintuenez gero inork ere, itxura batean behintzat, zapaldu gabea, begien aurrean neukan, **ababorreko** mandako beirate dotorez barna sartzen zen eguzkiaren argitan lo bezala. Edorta Jimenez

Hango azken lurmuturra karrakaren txopa baino atzerago utzi ostean lema istriborrera osorik sartuz branka **ababorrera** zehatz artezturik, hegoaldera jo genuen.'Trabestu! Edorta Jimenez

' eta **ababorrera** egingo duzue astiro. Joseba Sarrionandia

Aurrekoaren aparra desegin orduko egin behar zen salto, batelaren gila azpitik pasatu, **ababorretik** ahalik eta arinen igo eta berehala, bitsa galdu orduko, istriborretik dzanga berriro. Joseba Sarrionandia

Olagarro jigant baten besoak ziruditenak eta untzia kupidagabeki astintzen eta inarrosten zutenak, **ababorretik** eta istriborretik, brankatik eta popatik. Joan Mari Irigoien

Ababorrera eta istriborrera egin zuten aski bateratsu, eta, aldasarean gaindi aterarik beren aurpegi beltzak, itsaso makurrari egin zioten opari nahaste hura.Ontziak bira erdi bat egin zuen **ababor** aldera, eta tximista bezala abiatu zen gero norabide hartan. Juan Garzia

Ez ginen **ababor** ez istribor aldera biratu. Joxan Elosegi

San Jose XIII.a traineru etzanagoa da, eta haizeak edo olatuek **ababor** edo istriborretik jotzean errazago eramaten da. Berria - Kirola

Beste zabra baten **ababor** mandaren parean igaro ginelarik ohartu nintzen zergatik zitzaidan dena hain arrotz. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ababorreko** (3)

---

abade *(ETCn **196** agerraldi; orobat **abat** g.er. eta **abate** g.er.)* **1** *iz* gizonezkoentzako monasterio bateko burua, apaizteko esku duena. ik **abadesa**.

Meza Bastidan eman zuen Dom Moreau, La Pierre Qui Vire-ko **abade** eta Frantziako beneditarren buruak. Xipri Arbelbide

Orreagako **abadea** eta Arnegiko, Luzaideko eta Zaroko erretoreak joan ziren hileta-elizkizunak egitera. Koro Navarro

Kondeek gerrara gizon libreak eramaten zituzten bezala, leudeek ere beren basailu edo azpibasailuak eramaten zituzten; eta apezpikuek, **abadeek** edo haien ordezkariek. Iñaki Iñurrieta

Ospakizun handirako prestatua dagoen lekura iristean, kardinal, gotzain eta **abadeen** multzo goresgarria Aita santuaren inguruan kokatzen da. Askoren artean

Halakoxeak ziren apezpikuen, **abadeen**, kondeen eta beste handien arteko eztabaidak; haiek, erregeak epaitzen zituen, bere basailu nagusiekin. Iñaki Iñurrieta

Liskarrak besterik ez ziren ikusten jaunen eta apezpikuen artean, kapareen eta **abadeen** artean. Iñaki Iñurrieta

Arretaz ari da arakatzen komentuko **abadeak** ezkutaleku horretan giltzapean gordetzen dituen liburu debekatuen egileen izenak. Josetxo Azkona

Perugia elizbarrutiko San Justino monasterioko **abadeak** Frantzisko santuarekin topo egin zuen bidean. Askoren artean

-Komentu honetako kontuak ezagutu nahi nituen nik, eta aspaldi batean bertako **abade** izan zinenez... Xabier Mendiguren Elizegi

Abadeak eta lekaideek, ahal zuten neurrian, pozik eman zieten behar zutena. Askoren artean

Mateo, Saint-Denisko **abadea** . Iñaki Iñurrieta

Dubos **abadeak** lege salikoan oinarritzen du bere iritzia. Iñaki Iñurrieta

Kresala liburuan bilduak bide zituen Txomin Agirre **abadeak** orduko kontu tristeak. Pello Zabala

Kaperara noa eta aita **abadeari** keinu egiten diot, atera dadin. Marzel Etxehandi

Belokeko aita **abadea** ere haien artean. Marzel Etxehandi

San Atanasioren *San Antonio* ***Abadearen*** *Bizitza*-tik testualki hartua. Askoren artean

Arren eta arren egun bat gehiago gelditzeko bisitan eskatzen zion Benito **abadeari** . Pello Zabala

Ohitura hauen haritik, harakinek ere beren zaindaritzat hartu zuten Antonio **abade** santua. Pello Zabala

Bide horretarik zoazela, ezkila edo kanpai baten hotsa adituko duzu halako batean, edo txori baten kanta, Birila izeneko Leireko **abat** hark edo bertze anitz lurraldetako monjeek bezala, edo bertze zernahi adituko duzu, eta oharkabean ohartuko zara orduan ezen oinpean duzula gailurra. Joan Mari Irigoien

2 apaiza.

Andres Untzain **abadea** Saseta batailoian kaperau egon zela. Edorta Jimenez

Hala esan zuen **abadeak** , sotanaren goiko botoiak askatzen zituen artean. Joseba Sarrionandia

Hona, Kubara, Espainiako gerraren garaian etorri zen **abade** euskaldun batena bilatzen dudala diotsot. Mindurik, ezindurik, gizon **abade** haren biografia osatzea duintasun afera nuela begitandu zitzaidan. Edorta Jimenez

Nik ez daukat ezer **abadeen** alde, baina estimatuko nuen horrelako apaiz bat parean egokitu izan balitzait. Joxerra Garzia

Mundu guztiak jaurtitzen zizkiean arrosak prozesioan zihoazen militarrei eta **abadeei** eta mariaren alabei eta guraso zintzoei eta komunioa egin barriei eta... Koldo Izagirre

Abade gogorra eta zantar samarra egoan orduan Lemoizen eta, eleizara joan ezik, nonor jaiegunean soloan beharrean ibili zala jakiten baeban, hurrengo domekan pulpitutik kondenaten eban.Aldaketa bakarra komisario politikoaren ordez **abade** ortodoxoa zegoela han, hizketan. Xabier Amuriza

Askotarikoak ziren lantegi hori betetzen zutenak, denak ere bertsozale: **abade** bertsozaleak (Don Juan txikia, Joxe Mari Aranalde...), hedabideetako pertsonak (Joxe Mari Iriondo) [...]. Andoni Egaña

Beste hau garratz eta kaustikoago da: Garizuma ta Astesantua, **abadientzat**! Pello Zabala

3 *abade egin* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ondoren, **abade egin** nintzen, eta nire beste bi kiderekin Bizkaiko giro euskalduneko leku batera bideratzeko eskatu genuen. ETC-prentsa

4 *abade etxe* *(ETCn **196** agerraldi; orobat **abadetxe** **92** agerraldi eta **abatetxe** **104** agerraldi)* abadia.

Xaramelak Belokeko **abade etxean** eskaini dituen kontzertuen kalitatea ere ongi sentitua izan dela atseginekin jakin dute biltzarkidek. Herria

Jendea bazabilan trumilka **abadetxearen** inguruan. Michel Oronoz

Abatetxeko ostatuko gelek telefonoa zuten. Iban Zaldua

5 *abade mitradun* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Eta sagarako ezkil-hotsa entzunda, burualdean gurutzekari bat zuela, akolito, intsentsulari, intsentsu-ontzilari, irakurle, diakono eta subdiakonoekin, prozesio santuak aurrera egin zuen, eta aurkitu zituen **abade mitradunak**, priore eta aita-nagusi eta monje eta fraideak. ETC-literatura, saiakera

Aita santuak, apezpikuek, apaiz **abade mitradunek** eta beste zenbait klerikok elizkizunetan erabiltzen dute. ETC-entziklopedia

6 *abade nagusi* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Kontzertu onenetan, Hell Doradoko liturgiak agintzen du bertako **abade nagusi** Juan Uriartek txapela mexikarra jantzi behar diela taldekideei. ETC-prentsa

Aurreneko emanaldian, besteak beste, Jesusek apostoluekin egindako azken afaria, baratzeko otoitzaldia, Jesusen atxiloketa eta Kaifas **abade nagusiaren** aurrean egindako epaiketa antzezten dituzte. ETC-prentsa

Abade nagusia monasteriotik irten zen baratzera joateko. ETC-literatura, saiakera

Eguzki gorri batek argitu eta berotzen zuen mundua, Orreagako harresi eta hormetan hazten zen huntza lehortuaz, **Abade nagusia** gelara etorri zitzaidanean. ETC-literatura, saiakera

Zilarrezko Plateraren **Abade Nagusia**, Wuesnoykoa, behor gainean joan arren platera batean jarritakoaren itxura egiten zuena, esanez eze "ez dagoela suak egosiko ez duen animaliarik". ETC-literatura, saiakera

Apaiz nagusia, apaizburu edo **abade nagusi** Itun Zaharreko erlijioko apaizen burua zen. Gurtza eta sakrifizioak koordinatzen zituen, hasieran tabernakuluan, gero Jerusalemgo tenpluan. ETC-entziklopedia

1835eko martxoaren 13an, goizaldeko laurak aldera, Eibarko urbanoek Ziortzara ailegatu, eta bertoko **abade nagusi** eta kanonikoak preso hartuta Eibarrera eraman zituzten, Ziortzak ez zuelako ordaindu elizaurreari zegokion anoa kopurua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mariano Jose de Ibarguengoitia Bilboko **abade nagusia** izan zen eta DA gaztea Ondarroatik Bilbora ekarri zuen berarekin abade-etxean bizi izan eta seminarioan sartzeko ikasketak egin zitzan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ekin zion monasterioak sortu eta erreformatzeari, guztien **abade nagusi** izatera helduz. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abade bat (7); **abade batek** (7); **abade bati** (5); **abade eta** (9); **abade hori** (5); **abade jaunak** (3); **abade zahar** (3); **abadea bera** (3); **abadea bere** (4); **abadea ere** (7); **abadea eta** (9); **abadea zertxobait** (3); **abadea zertxobait aldendu** (3); **abadeak esan** (3); **abadeak eta** (7); **abadeak ez** (3); **abadearen ikustera** (3); **aita abadea** (26); **aita abadea ere** (4); **aita abadeak** (5); **aita abadearen** (10); **andres untzain abadea** (4); **andres untzain abadearen** (3); **azkue abadea** (3); **belokeko abadea** (3); **belokeko aita abadea** (3); **du dubos abadeak** (3); **dubos abadeak** (27); **dubos abadearen** (10); **erantzun zion abadeak** (3); **eta abade** (3); **eta abadeak** (6); **eta abadeak eta** (3); **eta abadearen** (3); **eta abadeari** (4); **gure aita abadea** (3); **monasterioko abadeak** (3); **untzain abadea** (5); **untzain abadearen** (3); **zen abade** (5); **zen abadea** (6); **zion abadeak** (4); **zuen abadeak** (7)

---

abadegai *iz* apaizgaia.

Jam vero quisque illa teneret manu-Jan, bero dagozanean, kiskillak tenedoreagaz, Manu. (ZAMARRIPA K 39) **Abadegai** baten itzulpena, latin azterketa batean. Iñaki Arranz

Montenegroko **abadegai** ortodoxo ohia aita eta militante komunista ama. Berria - Harian

---

abadegintza *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* abade bihurtzea.

Ikasketak aldatu beharrak, hasita zituen **abadegintzako** ikasketak utzi beharrak estutu egin zuen, beretik atera. ETC-literatura, saiakera

---

abadeki *iz* apaizgaia.

Nire asmoa azaldu nion beste aldetik erantzun zidan **abadeki**-ahotsari. Edorta Jimenez

---

abadesa *iz* emakumezkoentzako monasterio bateko burua.

Abadesak astean behin behintzat deitu behar ditu bere ahizpak kapitulura. Askoren artean

Abadesak eta bere ahizpek, berriz, inoren bekatuagatik haserretu eta asaldatzetik gorde behar dute, haserreak eta asaldurak karitatea eragozten baitie beraiei eta besteei. Askoren artean

Senideek edo beste norbaitzuek ahizparen bati zerbait bidaltzen badiote, **abadesak** helarazi biezaio. Askoren artean

Ez zaie zilegi ahizpei mintzalekuan edo sarean hitz egitea, **abadesaren** edo bere bikariaren baimenik gabe. Askoren artean

Rainaldok, Jainkoaren errukiaz Ostia eta Velletriko gotzain denak, Kristorengan txit maitea dudan ama eta alaba Klara andreari, Asisko San Damiango **abadesari** eta bere ahizpei, oraingo nahiz gerokoei: osasuna eta aita-bedeinkazioa. Askoren artean

Alditxo batez Bastiako **Abadesen** San Paulo monasterioan eta Asis ondoko Pantzoko Sant'Angelon egon ondoren, Klara eta lagunak San Damianen jartzen dira bizitzen. Askoren artean

Monasterioko **abadesa** agertu zenean, besarkada handi batekin hartu zuen erregina, baina esan zion: [...]. Juan Kruz Igerabide

Ordukoan Trinitate komentuan luzaroan ibili ginen, Cervantes -bere alaba bertako **abadesa** izan zelako- itxura denez han baitago ehortzita, zehazki zein hilobitan gauza jakina ez den arren. Ramon Saizarbitoria

Gure amak, giristino gisa karitatearekin zituen obligazinoek hartaraturik edo, jauregiaren zerbitzurat ipini zuen emazteki hura, Uraitzeko klaratarren **abadesaren** ahotik historia haren berri jakin ondoren. Joan Mari Irigoien

Anai Aingeru eta anai Leonek, ahal duten neurrian, eskatzen diote Benedikta andreari, Santa Klararen monasterioko dama pobreen **abadesari**, eta haren ondoren etorriko diren **abadesa** guztiei, aita santuaren oroitzapenez eta harenganako debozioagatik, gorde dezatela Santa Klararen monasterioan berak irakurtzeko hainbeste aldiz erabili zuen liburu hau. Askoren artean

Aitortza egin bezate urtean hamabi aldiz gutxienez, **abadesaren** baimenaz. Askoren artean

Inozentzio gotzainak, Jainkoaren zerbitzarien zerbitzariak, Kristorengan alaba maite ditudan Klara **abadesari** eta Asisko San Damian monasterioan bizi diren beste ahizpa guztiei: osasuna eta bedeinkapen apostolikoa. Askoren artean

Abadesaz janzteko eskatzen zion Danelek. Anjel Lertxundi

Berehala agertu zen Ada, bere **abadesa** -janzki errauskolorean. Anjel Lertxundi

1229 aldera Monticelliko monasteriora bidalia izan zen **abadesa** karguaz. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abadesa eta (6); **abadesak edo** (4); **abadesak edo bere** (3); **abadesak eta** (3); **abadesak eta bere** (3); **eta abadesak** (4)

---

abadetasun *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)* *iz* abade izatearen nolakotasuna.

Heu ez haz, kokolo hori, haren aldarteaz garbiegi jabetuko, baizik laketuko, kasik harrotuko, ezagun iragankorrei bere **abadetasunik** aitatu ete heuntsen hark kezkati itaundurik, hik 'osabaren' inbentzioa jakinarazo deutsaanean. ETC-literatura, saiakera

---

abadetu, abade(tu), abadetzen *(corpusean ez dago; ETCn 20 agerraldi)* da *ad* abade bihurtu.

--- **Abadetuz** batera, desobedientzian deklaratu? ETC-literatura, saiakera

Irakasleak **abadetu** egin ginen, apaiz faltan. ETC-literatura, saiakera

Josulagunetan egin zituen Andimak ikasketak, baina **abadetu** baino lehenago utzi zituen eliz jantziak. ETC-prentsa

Ormaiztegikoa da izatez, eta, 1992an **abadetu** zenetik, Tolosan eta Donostian jardun du abade lanetan, baita Gipuzkoako gazte pastoraltzako arduradun ere. ETC-prentsa

1935ean jantzi zuen frantziskotarren abitua, eta 1943an **abadetu** zen. ETC-prentsa

Felix Bustindui, 1927tik 1937ra arte Berriatuko parroko izan zena, mende hasieran sartu zen seminarioan, 1909an **abadetuz**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Urte horretan bertan **abadetu** eta bi urte geroago Toledoko domingotarren komentuan sartu zen. ETC-entziklopedia

Derioko apaiztegian ikasi ondoren, 1966an **abadetu** zen. ETC-entziklopedia

---

abadetxe ik **abade 3**.

---

abadetxo *iz adkor* abadea.

Abadetxoa, aho-zabalik jarraitu ondoren Pepponeren ekintza, zurbildu eta bere sermoitxoa ahal bezala tetelkatuz, aldarera itzuli zen meza bukatzeko. Koldo Biguri

Oso-oso urduri jarraitu zuen, harik eta **abadetxoa** barandara hurbildu zen arte, ohiko berbalditxoa egitera. Koldo Biguri

Hura aldi baterako enkargua zela jakin arren, **abadetxoak** berritasun txiki batzuk ekarri zituen elizara, besteren etxean dagoen gizonak beharrezkoak izaten baititu horiek egonaldia jasan ahal izateko."Metro t'erdiko apaiza" deitzen ziola entzutean, **abadetxoak** bere metro eta hirurogeiko harrotasun guztiaz tentetu eta lepoko zainak puztu zituen. Koldo Biguri

---

abadetza *iz* *(corpusean ez dago; ETCn 70 agerraldi)* abadearen lanbidea eta kargua.

Amorotoarrek, antza, euren arte genealogikoa, nire **abadetzako** aholkulari infaliblea, biziraule utzi nahi izan zuten, eurak ezabatu aurretik. ETC-literatura, saiakera

On Sebastian zuen izena eta hogeita hamar urte baino gehiago zeramatzan **abadetzan**. ETC-literatura, saiakera

Handik egun gutxitara, Zesarrek senatuari proposatu zion Vitelio, Beranio eta Serbeori **abadetzak** ematea; Fultziniori, ohoreetarako hauteskundean babesa agindurik, ohar egin zion ez zezala elokuentzia gogorkeriaz honda. ETC-literatura, saiakera

Tiridatesek ez ziola uko egingo Erromara etortzeari, diadema hartzeko, **abadetzaren** kultuak eragozten ez bazion; printzearen banderen eta irudien aurrean azalduko zela, non, legioen bistan, erreinua inauguratuko zuen. ETC-literatura, saiakera

Richelieuren aldeko eta lagun izan zen Echauzek erabat babestu zuen Saint-Cyran, batez ere karreraren hasieran (aurrena Saint-Cyranek onartu ez zuen Itxassoko **abadetza** eskainiz, eta beranduago Baionako katedraleko kalonjetzarekin), Echauzen irudiko diozesi horretako apaiz adimentsuena zen eta. ETC-literatura, saiakera

Seminarioan nahiko frankismo jasanak gozak, **abadetza** be espiritu beragaz estreinatzeko. ETC-literatura, saiakera

Erregeen odola bi aldiz dabilkizu zainetan, eta hala ere, zure aitatxiri gertatu bezala, **abadetza** zirtzil baten saria ere ez duzu bildu. ETC-literatura, saiakera

-Azken sinodoetan gogor dabiltza gorabehera horien aurka, batez ere **abadetza** ofizio bat bihurtu nahi dutenak, besteak beste, Calahorrako apezpikua eta berarekin batera elizaren aginpide osoa eskuratu nahi duten apaiz batzuk -kontatu zion behinola Marinaxeren senargaiak, bide bazterreko haritz baten azpian. ETC-literatura, saiakera

---

abadezale *iz/izond* abadeen, apaizen zalea.

Trikitian hain zarratua eta bera hain arteza izanik, eleiza kontuan, ostera, ez ei zan bape zalea eta gitxiago **abadezalea**. Xabier Amuriza

- **Abadezale** be ezingo eban izan, orduan. Xabier Amuriza

---

abadezulo *izond adkor* apaizen zalea.

Oraindik ere antipatikoek euskaldun sentitzen ez direnek euskaldun izatea baserriarekin, nekazari munduarekin, herrixkarekin eta mendiarekin lotzen dute, eta baita atzerakoia, itxia, **abadezuloa**, garbiketa etnikoaren aldekoa eta abar izatearekin ere. Berria - Harian

Haien ikuspuntutik, euskaldunak, nekazari hutsak direnez, atzerakoiak eta **abadezuloak** dira, kasu; edota kulturagabeak eta probintzianoak. Bernardo Atxaga

---

abadia *iz* abade edo abadesa baten gidaritzapeko monasterioa edo eliza.

Karlomagnok berak zituela sortu bai **abadia** eta bai Sahagún, hots, Caminoko leiendan Karlomagno beti agertzen da nonbaitik. Piarres Aintziart

Begiak zabal zabalik egona naiz ikustearekin nola eraberritu eta apaindu zuten **abadia**. Herria

1661ean haren gorpua atera zuten Westminster-ko **Abadiatik**, eta hil ondoko exekuzioaren errituala egin zioten, urtarrilaren 30ean, Charles I.a exekutatu zuten egunean. Berria - Harian

Jean Duvergier de Hauranne (1581-1643), teologoa, Jansenioren laguna, jansendarren egoitza izan zen Port-Royalgo **abadiaren** zuzendari espirituala. Juan Martin Elexpuru

Gipuzkoari dagokionez, Pasaia eta Irun bitarteko eremua zegoen Baionako Elizbarrutian, eta Nafarroari dagokionez, berriz, Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan eta Urdazubiko **abadia**. Koldo Zuazo

Maiz **abadia** berriak sortzen zituen esku berak egiten zien lapurreta zaharrei. Iñaki Iñurrieta

Apezpikutegi eta **abadietarako** hauteskundeez. Iñaki Iñurrieta

Eliza hau ere Subasio mendiko **abadia** beneditarraren mendekoa zen. Askoren artean

Beste gune distiratsua, Saint-Michel Normandiako **abadia** famatua izan zen. Pello Zabala

1271 urtean, Orriak erosi zion Leireko **abadiari** Luzaideko eremu osoa, Mokosailetik haste eta Ibañetara arte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Abadia maldatsua, han, jauregi fantastiko bat bezala lurretik urruti baztertua. Josu Zabaleta

Itsas behera zegoen, bezperan bezala, eta hurbildu ahala, nire aurrean goratzen ikusten nuen miragarrizko **abadia** hura. Josu Zabaleta

---

abadiñar *(orobat **abadiñoar** g.er.) izlag/iz* Abadiñokoa, Abadiñori dagokiona; Abadiñoko biztanlea.

Euskaldunen artean, David Etxebarria **abadiñarra** da (Euskaltel-Euskadi) aukera apurren bat duen bakarra. Berria - Kirola

Abadiñarrek ez zuten huts bakar bat ere egin, agerikorik ez bederen, eta biziki ospatu zuten garaipena. Berria - Kirola

Abadiño A-k eta Altamirak parra egin zuten, baina **abadiñarrak** nagusitu ziren faltengatik. Berria - Kirola

Pisurik txikienean zailtasunak izan ohi dira pisuan sartzeko, baina **abadiñarrek** talde batekin jardungo dute eta Edu Mendizabal entrenatzailea laukorik indartsuena sokaratzeko aukeran izango da. Berria - Kirola

---

abadiñoar ik **abadiñar**.

---

abadira *(ETCn **64** agerraldi) iz* Gadiformes ordenako arrain espeziea *(Pollachius pollachius).*

Bazirudien itsas hondoko belarrek ur handietako bizitza misteriotsuaren bizilekuak arrantzaleari eskaini eta haren sarera denetik sartu zela nahas-mahas aliritzira: bakailaoa, **abadira**, platuxa, oilarra, arrain arruntak horiek guztiak, gris zikin kolorekoak, orban zurixkez apainduak. Karlos Zabala

---

abagadune ik **abagune**.

---

abagune *(orobat **abagadune** g.er.)* **1** *iz* zerbaitetarako unea, egokiera, aukera, eskuarki ona. ik **parada**[1].

Obra mardul honen bidez, Frantziskorekin topo egiteko **abagunea** eta aukera eskaini nahi diogu euskal irakurleari. Askoren artean

Te berdearen kalitatea aski ona zen, eta nahasketa erabat egokia, tokia eta **abagunea** kontuan hartuz gero. Ibon Uribarri

Beraren **abagunea** iristen zela sentitu zuen. Juan Garzia

Oraindik haietako asko kanpoan dabiltza, **abagunearen** zain, beren bide okerraz damuturik dauden plantak eginez-Eta zuek beti zaudete hemen, herrian? -galdetu zuen azkenean Txitxikovek, **abagunea** egokitu zitzaionean. Iñaki Mendiguren

Hirugarren aldiz, beste **abagune** bat bilatu zuen, eta afalostean esan zion: [...]. Jose Morales

Charlyk edozein **abagune** aprobetxatzen du literatoa dela aipatzeko. Iban Zaldua

-Badakizu -dio emakume gazteak-, **abagunea** profitatu du, ezer baino gehiago. Monika Etxebarria

Ez zion lagunari galdera itzultzeko **abagunerik** eman. Josu Landa

Dontsu baten bizitzan oso gutxitan gertatzen baitira horrelako **abaguneak**. Anjel Lertxundi

Bidaiaren xedea ez baita toki jakin batetik beste batera iristea, bide egitea bera baizik, gogoari **abagunea** eskainiz harremanak eta bizipenak soseguz hausnartu eta barneratzeko. Jon Arretxe

Nekez izango dut honelako beste **abagunerik** bidaia honetan. Jon Arretxe

Ez da, ordea, horretarako **abagunerik** izan. Jon Arretxe

Ivan Ogareffen bila joan zen Vasili Fedor, eta traidorea **abagune** hartaz baliatu zen komandantearekin egunero elkartzeko. Karlos Zabala

Harainoko tartean lagunari lepoa emanda joan behar nuenez, **abagunea** baliatuz soka-bihurra ez ote zidan berak niri egingo pentsatu nuen. Edorta Jimenez

Abagune honetarako trebarazi gaituzte, behin eta birritan, baina, hala eta guztiz ere, baldreski moldatu gara gas maskarekin, trakets oso. Mirentxu Larrañaga

Abagunea heldu zenean, alegia sarjentu errekrutatzailearen aurrez aurre geundelarik, [...]. Mirentxu Larrañaga

Bakanak zituztela harremanetarako **abaguneak**, eta hasieran Nora ere aitarekin batera sartzen zen, etxe, txabola nahiz borda, gonbidatzailearen aterpera, gau-solasaldi egokiren baten itxaropenez. Anjel Lertxundi

Sarjentuak minutu parean itxaron du, lurpeko babeslekutik irteteko **abagunearen** zain. Mirentxu Larrañaga

Abagunea iragan egin zen. Mirentxu Larrañaga

Abagunerako gizabidetsu jantzita zegoen, krepe beltz txinatarrez. Mirentxu Larrañaga

Olga, Xavier eta Adela ez daudela probestuz, oraintxe dugu jostatzeko azken **abagunea**. Patxi Zubizarreta

Erregeari kontra egin ezin zionez, agindua azpikeriaren batez bete ahal izateko **abagune** bila zebilen. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Dena dela, artean zelatan ibiliko zitzaion, harrapatzeko **abagune** egokia izan arte. **Abagune** polita baita belztasun nihilista merkean irristatu eta deklaratzeko, adibidez, nola hilketako heriotzak erakusten digun zorrien eta arkakusoen pare garela. Migel Angel Mintegi

Esaldi horrek aski ongi laburbiltzen zuen gertatutakoaren muina, baina iruditzen zait hitz aproposagoak aurkitzeko esperantza nuela, eta baita aurkitzen nituenean esateko **abagune** hobea izatekoa ere. Ramon Saizarbitoria

Maiteminduta zeuden, noski, eta ezkontzeko **abagune** aproposa aurkitzea baino ez zitzaien falta. Martin Anso

Aurkitu zuen Alkimok **abagune** ederra bere erokeriarentzat, Demetrio erregeak biltzarrera deitu eta juduen erabaki eta asmoei buruz galdetu zionean. Elizen arteko biblia

Azken batean **abagune** berezia zen; protokolorik gabekoa agian, baina **abagunea** nolabait ere. Mirentxu Larrañaga

Abagunea, zinez, arriskutsua zen oso. Josetxo Azkona

Abagune ezin hobea nuela, zioten, bizitza berri bati ekiteko. Joxean Agirre

Oraintxe dut aukerako **abagunea**: errezatzen ari da. Juan Garzia

Karlosek, eskua kopetara eramanda, amorratuta pentsatu zuen nolako **abagune** egokia galdu zuen. Koro Navarro

Jakina, Whittaker andreari ere oparitzen zion urrezko txanponik, horixe, berariazko **abaguneetan**. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abagune bat (6); **abagune egokia** (6); **abagune ezin** (3); **abagune ezin hobea** (3); **abagune historikoa** (4); **abagune horretan** (5); **abagune hura** (3); **abagune politiko** (8); **abagune politiko honetan** (3); **abagune politikoa** (11); **abagune politikoan** (5); **abagunea aprobetxatuz** (3); **abagunea baliatu** (7); **abagunea baliatuz** (4); **abagunea ikusi** (3); **abagunea izan** (5); **abagunea izango** (4); **abagunearen zain** (5); **abagunerik izan** (3); **bakea lortzeko abagune** (3); **beste abagune** (6); **beste abagune bat** (3); **egiteko abagunea** (5); **egungo abagune** (7); **egungo abagune politikoan** (5); **eta abagune** (5); **eta abagunea** (8); **lortzeko abagune** (3); **zuen abagune** (4); **zuen abagunea** (4)

abail-abail *adlag* erabat abailduta.

Abail-abail eginda dago. Iban Zaldua

---

abaila *(ETCn **353** agerraldi)* **1** *iz* abiadura, oldarra.

Harreman hori suntsitzailea izaten da sarritan, baina, beste batzuetan, berriz, onuragarria izan daiteke, **abaila** eta espontaneitatea eman ditzake, eta modu harrigarri eta txundigarrian jokatzeko gaitasuna ere bai tarteka. Xabier Olarra

Tourettedun askok atletismorako joera izaten dute, hein batez (susmatzekoa da) beren **abaila** eta zehaztasuna dela medio. Xabier Olarra

Hamabi metro segundoko **abailan**. Karlos Linazasoro

Malda-beheretan lehoi eme baten **abailan** botatzen zuen bere burua. Fernando Rey

Gero konpromiso batez oroitu zen, eta dena bertan behera utzirik halako **abailan** alde egin zuen handik, non bidean ikusi zutenei iruditu baitzitzaien sinetsi ezineko ziztuan zazpi herri zeharkatu zituen tximista luze ilun bat, atseden hartzeko ere inola ere gelditu nahi ez zuena. Xabier Olarra

Jazarraldi eroak, tiroketak, sute-txikizioak, mutilazio gogorrak eta heriotza-eszenak segundo batzuetan bene-benetako bihurtu, eta sekulako **abailan** pasatzen zaizkio gogamenetik. Xabier Olarra

Momentu hartan taxi bat pasatu zen haien aurretik eta Karolinek euritakoarekin keinu egin, geldiarazi, eta berehala helbide bat esan zion txoferrari eta konturatzerako Andreas taxi barrenean eserita zegoen Karolineren ondoan eta joan ahalako **abailan** zihoazen, hala iruditu zitzaion Andreasi. Matías Mujika

Globalizazioak hartu duen komunikazioaren **abailak** gizakia ordezkatu du. Berria - Kultura

Elkartze erraz hark indar eta adore emanda, **abaila** hartu eta bere borondatez hasi zen begiratzen inguruko auzora. Anton Garikano

Burua apal banabil, soa ene oinetakoen aintzinean finkatua: gudronean preso hartu legarrak laster doatzi ene gibelerat, **abaila** haundian. Herria

Intentsitate handiagoan, **abaila** handiagoan bizi haiz, zerbait ari zaik barruan erretzen, bihotzak beste modu batera egiten dik taupada, eta aldi berean dena berdin zaik. Xabier Olarra

Pentsamenduak, burutazio diaboliko batek eraginik, **abaila** bizian zebilzkion. Patxi Zubizarreta

Abaila bizian gindoazen, eta kanpoko irudiak, desitxuratuta, aurreko kristalean azaldu eta ezkerreko leihatilan galtzen nituen. Rafa Egiguren

Zehaztasuna txundigarria zen, eta orobat marrazketa-**abaila**, marra-ekonomia eta marrazkien xarma eta estiloa. Xabier Olarra

Iheska joan zen arin-arin; ez zuen noski **abaila**-ziriak ere harrapatuko ondotik. Patxi Ezkiaga

2 ***abaila batean*** abaila bizian.

"Nik ez diat beharrik eta!", jaso zuen lurretik bizikleta lumazkoa balitz bezala, eta **abaila batean** urrundu zen handik, kantuz. Josu Zabaleta

3 ***abailan*** *adlag* abaila bizian.

Abailan joan zen seme-alabak jakinaren gainean jartzera. Patxi Zubizarreta

Ez zen izar bat ere ikusten, eta **abailan** zihoan trenaren bafadak halako gauza bero, bigun, abailgarri, itogarri bat botatzen zigun. Josu Zabaleta

Mina sentitu du berna-hezurrean gora igotzen; hala ere, lasterka jarraitu du, aurrena herren pixka bat eginez; gero, berotu denean, lehen bezala **abailan**. Anjel Lertxundi

Gero, jilbaba gorputz bustiaren gainean jantzi, eta **abailan** oldartu zen emaztearengana. Patxi Zubizarreta

Jazarraldi eroak, tiroketak, sute-txikizioak, mutilazio gogorrak eta heriotza-eszenak segundo batzuetan bene-benetako bihurtu, eta sekulako **abailan** pasatzen zaizkio gogamenetik. Xabier Olarra

Momentu hartan taxi bat pasatu zen haien aurretik eta Karolinek euritakoarekin keinu egin, geldiarazi, eta berehala helbide bat esan zion txoferrari eta konturatzerako Andreas taxi barrenean eserita zegoen Karolineren ondoan eta joan ahalako **abailan** zihoazen, hala iruditu zitzaion Andreasi, kale noiz ezagun noiz ezezagunetan barrena, Jainkoak daki nora! Matías Mujika

4 ***abailetan*** *adlag* abaila bizian.

Eta gero behera joan ginen, **abailetan**, irristatuz eta murgilduz, eta, zorabioak hartuta, arrunt gaizkitu nintzen, mendi tontor handiren batetik behera ametsetan eroriko banintz bezala. Koro Navarro

Ikusmin handiarekin hasi zen partida; lehenengo jokaldiak **abailetan** eraman zituen Katxok, pilotak justu-justu marraren gainetik balak bezala boteaz. Koro Navarro

Bautistak gogor zigortu zituen zaldiak, eta kotxea **abailetan** abiatu zen. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abaila batean** (6); **abaila bizian** (11); **abaila eta** (3); **abaila handiagoan** (3); **abaila hartu** (3); **abailan joan** (5); **abailan joan zen** (3); **eta abaila** (4)

---

abailarazi, abailaraz(i), abailarazten du *ad* abailtzera behartu.

Zenbatenaz ere gogopiztu ninduen haitzetako nikelaren analisiak, aurreko nire bizialdian, hainbatenaz ere makurrago **abailarazten** ninduen orain fosforoaren eguneroko neurketak, zeren norberak sinesterik ez dion lan batean jardutea samin handia baita. Juan Garzia

---

abaildu *(ETCn **1.567** agerraldi)* abail(du), abailtzen **1** da/du *ad* nekatu, leher egin; pisuak-edo makurtu; behera etorri, behera etorrarazi.

Nola ez zuen nekeak **abaildu**? Karlos Zabala

Bat-batean, bai beso haiek eta bai burua **abaildu** egin zitzaizkion. Lurrera **abaildu** zelarik ere, inor ez omen zen lehen momentuan laguntzera lerratu. Bernardo Atxaga

Gero bidera sartu ziren, On Camillo aurrean beti eta Meharra beti atzean, hanka-puntatan zebilela artean ere lur minatuan balego bezala, jada ez baitzuen ezer ulertzen, eta halako batean lurrera **abaildu** zen. Koldo Biguri

Berebiziko beroa egiten din hemen, eta horrek **abaildu** hau. Anjel Lertxundi

Zorigaitzek **abaildu** egiten zuten, gogoz erorarazten, bere garaile-ibilera hilduraz zamatuz mantsoago ibilarazten. Fernando Rey

Erasoan eginiko huts garbi pare batek Xala **abaildu** eta Peña berpiztu zuen. Berria - Kirola

Nola sentitu nintzen une hartan zuhaitz bat bezala, fruituen pisuak abaildua! Eneak, ordea, ezerezaren fruitu beruntsuak ziren, guztiz **abaildu** nindutenak. Joan Mari Irigoien

Legerik zuhurrenek ere ezin izan zuten berrezarri hilzorian zegoen errepublika batek, anarkia orokorrak, gobernu militarrak, inperio gogorrak, despotismo hantustetsuak, monarkia ahulak, gorte ergel, inozo eta superstiziotsu batek, hurrenez hurren **abaildu** zutena. Iñaki Iñurrieta

Halaxe egiten nituen orduak eta orduak, eta begirik bildu gabe igarotzen nituen gaualdi luzeak ere, kalesako neskatxa gogoratzea beste deus egin ezinaren setak **abaildurik**. Anjel Lertxundi

Bihotza **abaildurik**, hortaz, mahai huts batean jarri eta Dimitrios-i eskatu nion bazkaria. Oskar Arana

Eta izotzezko lautadaren gainean geratu da zuen Iron Will hori, istriborrera **abaildurik**. Joseba Sarrionandia

Abaildurik eta aski etsiturik dago. Jose Angel Irigaray

2 (era burutua izenondo gisa)

Neska, hogeitalau-hogeitabost urtekoa agian, txikia zen, oso mehea hura ere, zurbila oso, halako aire nekatu, unatu, **abaildu** batekin. Urrutiratzen ikusi duzu, sahats **abaildu** baten lerdentasunaz, pauso bakoitzaren ondoren zuri begira, ulertzen ez duzun iluntasunezko keinu batekin, besarkadaren aurretik entzun ez duzun maite zaitut baten oihartzuna korridoreko paretak kolpatuz, zu kolpatuz. Josu Zabaleta

Gizon triste eta **abaildu** horren zekenkeriak izutu ninduen. Berria - Kultura

Sophieren ama izan daitekeen emakume **abaildu** bat agertzen da albumaren lehen orrialdeetan. Joxean Agirre

Eder **abaildu** hura oheratu zen orduko, onez onean hasi nintzaion kontsolatzen. Jon Muñoz

Esaldia esaten zuelarik, amona ate nagusiraino joan zen ibilera **abaildu** batez. Anjel Lertxundi

Ezkontza arrunta da, ezkongai eta gonbidatu denak adinean ongi sartuak izateak halako giro **abaildu** bat ematen dio eszenari. Anjel Lertxundi

Goiok postalaren bestaldeko hitzak irakurri zituen, letra txikia, borobila, aurrerantz **abaildu** hura: [...]. Joseba Sarrionandia

Aizan! -Llumek begi triste **abaildu** nekatuez begiratzen dio-. Antton Olano

Neure buruarekin haserre baino triste, hildakoaren aurpegia osatzen hasten naiz, astiro, sumin **abaildu** batez. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan)

Abaildu itxuraz gogoetei emana egon zen pixka batean. Migel Angel Mintegi

Niri so zegoen, elurretan galdutako txolarre batena bezalako **abaildu** itxurarekin. Anjel Lertxundi

4 irud/hed

Beste haitzulo bat zen, erabat bestelakoa, karta sorta bat ostera nahastean bezala, estua lehen zabala zen lekuan, altua baxua zenean: puntu batean ganga **abaildurik** zegoen, eta estalaktitek, goitik behera beharrean, aldamenera zeuzkaten puntak, zikoina-moko antzera. Juan Garzia

Lo-jantzi zuri bat zeraman eta ile gorri bizia sorbalden gainetik **abailtzen** zitzaion. Alberto Ladron Arana

Lancelot Agravainengana **abaildu** zen zuzenean. Juan Kruz Igerabide

Eta hitzak, odoletan blai, lurrera **abaildu** zaizkigu, astun, baldar, indarge. Joxerra Garzia

Orroe urratu batek beldurtu ninduen, armairua nire andregaiaren gainean **abaildu** zen, baina honek oihu egin zion: "Segi, segi beste puxka bat, gehiago nahi dut", nik neure oihuak irentsi egin behar izan nituen, ni ere korritu egin nintzen-eta. Juan Martin Elexpuru

Lotsagorriturik, begiak gure gainean **abailtzen** zen zeru pisutsurantz desbideratu nituen. Alberto Ladron Arana

Litekeena dela arratsa **abailtzean** berriro lainoa sartzea, nork esango luke, zerua orain hain garbi egonik. Jon Alonso

Esan dezaket lehen egun haren gaua **abaildu** aurretik, oro har guztiari buruz jakinaren gainean nengoela zehatz-mehatz. Urtzi Urrutikoetxea

Gero Nancyk haren gorputza indarrik gabe beraren gainera **abailtzen** sentitu zuen. Oskar Arana

Gaua emeki-emeki **abailtzen** zen hiriaren gainera. Jon Alonso

Aurreneko txundidura pasaturik, jendea lasterka **abaildu** zen haiengana, jipoitzeko asmoz. arratsaldea **abaildu** da muino gainera, belarra ere kukutu da, ene bihotzak ez nau abandonatzen. Juan Kruz Igerabide

Bihotza malenkoniaz biltzen duen argi **abaildu** hori. Anjel Lertxundi

Gizonak aizkora hartu zuen enbor **abaildu** baten gainetik. Bernardo Atxaga

Aduanak, moilako zerbitzuak, salerosketako enpresak eta ontzi-konpainien bulegoak ziren eraikuntzak, eta, arratsa gertu bazegoen ere, argi **abaildu** asko ikusten zen artean bertako leihoetan. Anjel Lertxundi

Casanovaren gorputz **abailtzen** hasiak suspertuko dio emakumeari garai bateko sua? Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abaildu bat (3); **abaildu da** (4); **abaildu egin** (3); **abaildu eta** (6); **abaildu zen** (13); **abaildu zenean** (3); **abailduta zegoen** (5); **abailtzen ari** (7); **abailtzen ari zen** (3); **abailtzen hasiak** (4); **abailtzen zen** (4); **baino abailduago** (6); **eta abaildu** (3); **eta abailduta** (4); **gainera abaildu** (6); **gainera abailtzen** (4); **gaua abailtzen** (3); **lurrera abaildu** (4); **zeharo abailduta** (3)

---

abaildura **1** *iz* nekea, akidura, unadura.

Aitarentzat etsipena eta **abaildura** ziren munduko gaitzik gaitzenak. Anjel Lertxundi

Gizona **abaildura** hartan ikusita, aspaldian inorengandik sentitu ez nuen zerbaitek egin zuen habia nire baitan: errukiak. Anjel Lertxundi

Noraren **abaildura** arindu nahirik ari zen, sufrimenduak kontatu behar baitzaizkio sufritzen ari den bati, eta ez pozak. Anjel Lertxundi

Mathildek jotzen zituen hainbat piezatako goibeltasunak **abaildura** areagotzen zioten Norari. Anjel Lertxundi

Guztiok izaten ditugu aldarte txarrak, eta aitortzen dut aldika bakardadeak eta **abaildurak** erasaten zidatela. Oskar Arana

Abaildurak jota zegoen, polizien itaunketa bere azalean bizi izan balu bezala. Anjel Lertxundi

Elurteak harrapatutako txolarre batena bezalako **abailduraz** begiratu zidan Müller jaunak. Anjel Lertxundi

Elizabethek bazuen Nathanielen jario literarioaren benetako balioa neurtzerainoko sena, baina zer zekarkion, **abailduraz** beste, barrena idatziz hustu behar sukartsu hark hainbeste maite zuen nebari? Anjel Lertxundi

Bihotzeko **abaildurak** arintzeko ez baitago irudimena bidaiatzen jartzea bezalakorik. Anjel Lertxundi

Ezinduak pairatzen duten **abaildura** kontuan izanda, lorpen horiek duten garrantzia nabarmendu zuten. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bere gastuak murriztearen truke, Dahlmann-ek lortua zuen Florestarrena izana zen Hegoaldeko estantzia bat **abaildura** segurutik salbatzea. Juan Garzia

Neguko dirdai errauts-koloreak eta espaloietako ezki biluziek areagotu egiten zuten inoiz luxu handikoa izandako barridearen, ez dut esango hondamendia, baina bai halako **abaildura** naroa. Anjel Lertxundi

Mina sentitu zuen, gero haserrea, gero tristura, eta isiltasunezko hilabete luzeak beste urtebetez ere luzatu ahala, tristura hura **abaildura** sakona eta geroz eta handiagoa bilakatu zen, hari izugarrikeriaren bat gertatu zitzaiolako uste osoa. Oskar Arana

Ez da kapa tinta-kolore soil hau, ama nirea; ez eta hotsandiko jantzi beltz deduzkoak, ez eta arnasestukako hasperen larriak, ez dituzu, ez, horiek, ez eta begitiko ibai naroa, ez eta betartearen **abaildura** agerikoa ere. Juan Garzia

Horra Casanova Veneziara itzultzeak irudikatzen duen iraganeko dohainen eta egungo **abailduraren** arteko lehia. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan)

Ez zen delako tristitia *post coitum* hori, sasijakintsu batzuek, klimaxaren ondorengo lehen momentu horietan eraso egiten zuen **abaildura** sentsazio bitxi hori esplikatu nahian aritzen zirenean aipatzen zutena. Joxemari Iturralde

Ai, ai, ai", gehitu nuen, zirikatzaile; Carvalhok **abaildura**-keinu esajeratu bat marraztu zuen: [...]. Iban Zaldua

· Alabaren barkamen-hitz otzanenek ere ez zuten gogo-**abaildura** hartatik egunetan aterako. Anjel Lertxundi

4 irud/hed

Elkarrekin joan ginen sukalderaino, jasan behar izan genituen laidoen **abailduraren** pean. Joxan Elosegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta abaildura (3); **gogo abaildura** (5)

---

abailetan *adlag* abailan.

Ikusmin handiarekin hasi zen partida; lehenengo jokaldiak **abailetan** eraman zituen Katxok, pilotak justu-justu marraren gainetik balak bezala boteaz, halako moduan non ezin baitziren inola ere harrapatu. Koro Navarro

Bota zituen musikariak fusila eta kartutxoen gerrikoa eta **abailetan** abiatu zen. Koro Navarro

Eta gero behera joan ginen, **abailetan**, irristatuz eta murgilduz, eta, zorabioak hartuta. Koro Navarro

---

abailgarri *izond* abailtzen duena, nekagarria.

Ni teledendako iragarki **abailgarriak** ikusten eta azpian hankapalo Benito Lertxundiren doinu sasizuberotar guztiak entzuten: arima biki bi, nor bere oinazearen kuskuan bilduta. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zen izar bat ere ikusten, eta abailan zihoan trenaren bafadak halako gauza bero, bigun, **abailgarri**, itogarri bat botatzen zigun. Josu Zabaleta

Egun batean, New Yorkera joan nintzen Tom ikustera, eta onartu behar dut nahiko **abailgarria** gertatu zela kontua. Oskar Arana

Lan haren alde txarrak bistakoak ziren, hain nonahikoak, hain **abailgarriak**, ezen, haiek ez aintzat hartzeko moduren bat aurkitu ezean, kondenatuta zeunden bizimodu garratz eta kexu amaigabeko batera. Oskar Arana

---

abaka *iz* Filipinetako landarea, platanondoaren itxurakoa, hostoetatik ehungintzan erabiltzen den zuntz bat ateratzen zaiona.

'Abaka' hosto txirikordatuzko etxola tradizionalak. Ramuntxo Etxeberri

---

abakando *iz* itsas oskoldun hamar-oina, otarrainaren antzekoa, baina aurreko hankak hagin handiz hornituak dituena *(Hommarus gammarus).*

Ivyk loreak zituen erosiak, nahiz eta loreak niri bost axola izan, eta **abakando** bat, eta Sauternes ardoa. Joxe Austin Arrieta

Edurneren iragarpenen bat betetzen ez zen bakoi-tzean, aitarekin elkartu eta **abakandoa** edo txangurroa jaten ospatzen genuen. Iban Zaldua

Ivyk, hozkailuan zela **abakandoa**, eta gainera, bere sport-soinekoa ez zela jatetxe dotore baterako batere egokia. Joxe Austin Arrieta

Jarri **abakandoak** eta lanpernak egosten biharko menurako, lehendakaria etorriko zaigu eta! Paddy Rekalde

Anton Caamaño txangurroak eta **abakandoak** harrapatzeko otarrak metatzen ari zen txalupa barruko bazter batean. Paddy Rekalde

---

abako 1 *iz* aritmetikako oinarrizko eragiketak egiteko taula boladuna.

5000 urtean, Asia Txikian **abakoa** izeneko tresna bat asmatu zuten kalkuluak egiteko, papera hedatu zen arte erabiliko zena. Pello Salaburu

---

abakozale *izond* abakoen zalea dena.

Kalkulu berria sartzeak sekulako iraultza sortu zuen, eta aldekoak eta kontrakoak izan zituen: **abakozaleak** eta algoristak, ezin adiskidetuzko alderditan banatuak. Jon Muñoz

---

abal *(ETCn **79** agerraldi)* **1** *iz* zordunak huts egiten badu, zorra ordaintzeko norbaitek ematen duen bermea.

450.000 euroren **abalak** aurkeztu beharko ditu Egunkaria SAko kontseilari ordezkariak kartzela utzi ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Vital Kutxak Rafa Diez LABeko idazkari nagusiari 100.000 euroko **abala** eman diola. Berria - Euskal Herria

Abalak jarri beharrak interesetan eragiten zituen kostuak aztertzeko eskatu zion familiari Uriak, bermea ordaintzeari buruz erabakirik hartu aurretik. Berria - Euskal Herria

Eginahalak egiten ari dira Otegiren, Olanoren eta Petrikorenaren bermeak ordaintzeko dirua lortzeko, batetik, eta **abalak** lortzeko, bestetik. Berria - Euskal Herria

Kopuru hori dirutan ordaindu behar izateak "ezintasuna larriagotu" egiten duela nabarmentzen du helegiteak eta, gutxienez, **abalak** onartzeko eskatzen dio Del Olmori. Berria - Euskal Herria

'Egin'-en kontrako operazioan atxilotutakoek ordaindu zituzten kopuru handienak, baina ez dirutan, **abaletan** baizik. Berria - Euskal Herria

Dirutan edo banku **abalez**. Berria - Euskal Herria

Bisiten joan etorriak **abalen** interesak baino garestiagoak dira. Berria - Euskal Herria

Berme guztiak dirutan, **abalen** edo hipoteken bidez ordain daitezkeela. Berria - Euskal Herria

Abal bidez ordaindu zuten guztiek. Berria - Euskal Herria

Auzitegi Nazionalak ez du beti onartzen **abal** bidezko ordainketa, eta dirutan egiteko exijitzen du. Berria - Euskal Herria

2 ***abal emaile*** *(ETCn **48** agerraldi; orobat **abalemaile** ETCn **97** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **abal(-)emaile** agertzen da)* ik **abalemaile**.

Horri zelaian entzun beharreko irainak gehituz gero, eta zuzendariak **abal-emaileak** garela aintzat hartuta, behin baino gehiagotan galdetzen diozu zeure buruari: 'zertan ari haiz hi hemen? '. Berria - Kirola

3 ***abala eman***

Alfonso Alonso Gasteizko alkateak, aldiz, Vital Kutxak Rafa Diezi **abala eman** izana "akatsa» dela adierazi zuen, finantza erakundearen irudiari kalte egiten omen diolako. Berria - Euskal Herria

"EAJ eta alderdi hori agintean duten erakundeak egunkaria erabiltzen eta **abala ematen** aritu izan dira, baina orain ez ikusiarena egiten dute gurekin», salatu zuten kazetariek. Berria - Euskal Herria

Gazpromi **abala emateko** prest agertu zen Schroeder. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abal bat** (3); **abal bidez** (6); **abal gehiago** (4); **abala eman** (3); **abalak ez** (4); **abalak onartu** (3); **abalen bidez** (13); **abalen bidez ordaintzeko** (13); **bermea abalen bidez** (3); **eta abalen eta abalen bidez** (3)

---

abalatu, abala(tu) abalatzen du *ad* abala eman.

Hiperberezia izan nahi du orain mundu guziak, baina, derrigor hiperberdintasunezko paper ofizial batez Estatuak **abalatua**. Patziku Perurena

Generalitateak taldearen aurrekontu osoa **abalatzea** nahi du (3,35 milioi euro), eta Generalitatea ez dago hori ordaintzeko prest. Berria - Kirola

Generalitateak zenbait baldintza jarri ditu taldea **abalatzearen** truke: [...]. Berria - Kirola

---

abaldun *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)* *iz* abala jasotzen duena.

Nafarroako Gobernuaren erabakiak bakarrik eragiketa bakar bat edo eragiketa batzuk ukitzen ahalko ditu, betiere honako hauek zehazturik: **abaldunen** nortasuna, abalak emateko epea eta gehieneko zenbatekoa, banakakoa edo osoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hori horrela da, onartzaileak oso ondo baitaki zorra ez duela ordaindu, eta abalemaileak, dakigunez, **abaldunaren** erantzukizun berdina du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ordainketa bermatu behar duen pertsonari abal-emaile deritzo, aldiz, **abalduna** izango da, abala prestatzearen ardura hartzen duen pertsona ETC-entziklopedia

Han ziren, balen aurkako beira artean, espainiako errege-erreginak, euskongadetako bufoiak, Bizkaiko **abaldun** nagusiak eta Bilboko berdulero eta burdelero behinenak. ETC-prentsa

---

abalemaile *(corpusean ez dago; ETCn **97** agerraldi; orobat **abal emaile** ETCn **48** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **abal(-)emaile** agertzen da)* *iz* abala ematen duena. ik **abal emaile**; **abaldun**.

2009ko maiatzean osatu zen euskal administrazioak erabaki zuen **abalemaile** izateari utziko ziola, baina programari eutsi zion. ETC-literatura, saiakera

Horretarako, aldez aurretik, igorleak, endosuemaile batek edo **abalemaile** batek eskuhartzaile bat izendatuko du (70.1 artikulua). ETC-zientzia, zuzenbidea

Abala pertsona batek (**abalemaile** izenekoa) abaldun baten zorra kitatu edo obligazioa betetzeko hartzen duen konpromiso legala da, abaldunak bere obligazioa betetzen ez badu eta abalemailearen ondasun baten jabetza edo bere kaudimena bermetzat harturik. Obligazioa beteko dela ziurtatzeko berme moduan aurkezten den ondasunari ere abala deritzo. **Abalemaile** baten abala izatea beharrezkoa izaten da obligazio bat dakarren kontratu bat izenpetu ahal izateko. ETC-entziklopedia

---

abalkide *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* beste norbaitekin batera abala eman duena.

Erantzukizuna mugatu ez ezik (35.1 artikulua: Letra baten ordainketa abal baten bitartez bermatu ahal izango da, bai bere osotasunean, bai zenbatekoaren zati batean), **abalkideek** letraren edukitzailearen aurrean toki berbera hartzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

abalorio *iz* beirazko bolatxo zulatua, koilarak eta kideko apaingarriak egiteko erabiltzen dena.

Idurika itzazu lau horma zuri, lastozko bi aulki, tripode baten gaineko jofaina, iltze batean zintzilikatua dagoen ume kapelu bat lorez eta **abalorioz** apaindua, apal bat ukendu pote batzuekin. Koldo Izagirre

---

abaltzisketar *izlag/iz* Abaltzisketakoa, Abaltzisketari dagokiona; Abaltzisketako biztanlea.

Agudo beste izen bat azaltzen da, Txindokipeko **abaltzisketar** naturazale Inazio Urretabizkaiarena. Pello Zabala

---

abanderatu *iz* pertsona talde baten, kausa baten edo kidekoen defendatzailea.

Vitruvioren mitoak leku pribilegiatua izango du beti arkitektoaren irudi modernoa eratzeko historia luze eta kontraesanez betetakoaren barruan, eta, "Antzinako" izateak ematen duen ospearen aureolarekin jantzitako **abanderatu** bailitzan, bera izango da arkitekturaren ideia, berau arte intelektual bezala hartuz, eta eskuaren eta garunaren, proiektuaren eta egikaritzaren, arteko banandura pertsonifikatuko dituena. Santiago Iruretagoiena

---

abandonatu, abandona(tu), abandonatzen *(ETCn **5.352** agerraldi)* **1** du *ad* bazterrera, alde batera utzi; eskutik utzi; bertan behera utzi; utzi. (bizidunez mintzatuz)

Beren kapritxoa bete ondoren emakumeak **abandonatzen** dituzten gizonen kontrako betiko erretolika bota zuen. Joseba Urteaga

Azken boladan bizi izan zen emakumeak **abandonatu** egin zuen, eta sorgin horietakoren batengana joana zen. Koldo Izagirre

Inork ez duela **abandonatzen** oraindik maite duena. Iban Zaldua

Elkar bizitzako zazpi hilabeteren buruan **abandonatu** ninduen, ez ninduela gehiago desiratzen argudiatuz. Itxaro Borda

Espero dut, baita ere, emaztea eta haurrak ikustea, zeinak nik, zera... **abandonatu** egin nituen. Eskarne Mujika

Beso guztiak luzatu ziren Peterrengana, bat-batean aireak alde horretarantz jo izan balu bezala; mutu baina erreguka ari ziren, **abandona** ez zitzan. Julen Gabiria

Adiskideok, ez ni **abandona** . Jon Muñoz

Han aitak saldu egiten ditu alabak, eta **abandonatu** egiten ditu semeak. Iñaki Iñurrieta

Kostaldeko guztiek hala uste dute, **abandonatzen** den hildako marinelaren espektroa azalduko dela goiz edo berant hilobi eske. Koldo Izagirre

Nekazariek nahiago dute semea izan alaba baino eta, beraz, neska jaio berriak **abandonatu** egiten dituzte edo ez dituzte erregistratzen. Berria - Gaiak

Aitak zin egin dik haurra karrikan **abandonatuko** duela. Elena Touyarou

Ni ez **abandonatzeko** erregutzen diot Laurari, baina ezetz esaten dit negarrez, ez **abandonatzeko** eskatzen dit Norak baina nik ez diot begiratu ere egiten. Mikel Hernandez Abaitua

Ziur naiz ezen baldin hura **abandonatzeko** burutazio ona baneuka, etsia hartuko lukeela. Jon Muñoz

Jaungoikoa **abandonatuz** gaitzari emanda bizi diren hiri lurtarreko biztanleek bizitza honetako nekeak eta estuasunak sufrituz gain betiko heriotza izango dute azkenean. Imanol Unzurrunzaga

Remy Martinen berotasunak **abandonatu** izan banindu bezala, eta aingeru guardakoaren babesak harekin batera, erorialdi bat sentitu nuen barnealdean: nire arima, hain zuzen ere, oinetaraino erori izan balitzait bezala. Bernardo Atxaga

Orduan egiaztatu zenuen haren leialtasuna, arrisku gune larrietan **abandonatu** ez zintuelako. Imanol Unzurrunzaga

Emazteak **abandonatu** egin zuen Falcone, beti zebilen lanean, ez zuen ia inoiz ikusten, bigarren emaztea berarekin hil zen mafiaren atentatuan. Mikel Hernandez Abaitua

Bi haurrekin **abandonatu** hau. Itxaro Borda

Beste batzuek, ordea, Jainkozale zintzoak eta adimen bikainez hornituak, ezin sinetsi dute Jaungoiko gorenak **abandonatu** gaitzakeenik. Imanol Unzurrunzaga

Angustiak kateztatzen nau eta horixe zitzaidan gau hartan gertatu, antsiak hondarrean **abandonatu** ninduen arte. Itxaro Borda

Galdua sentitzen zen Lauaxeta, bakarrik, deserroturik, **abandonaturik**, arrotz Euzkadi edo Euskal Herri berri, bizi eta interesgarri hartan. Juan Luis Zabala

Operazioa kaotikoa izan zen, eta harresien aurrean geratu ziren, **abandonatuta** , mertzenario asko. Berria - Harian

Senarrak **abandonatuta** , diru premian zeuden ama eta biak. Xabier Montoia

Gaur egun, jainkoek **abandonaturik** , eri dago: "parkinson" eritasuna dauka. Ramuntxo Etxeberri

Reginak lekuak hustu zituen, suaren aldamenean haur sortu berria eta umeontzi odoltsuak **abandonaturik** . Itxaro Borda

Biltegiko gela handi batean, mahai batean lerraturik, bi hilotz ikusi zituen ilunpean **abandonaturik** . Harkaitz Cano

Baina ba ote zegoen nork bere burua horrela **abandonatzerik** , inongo xederik gabeko itzulinguruak eginez bidaiatzerik, erabateko noraezean ibiltzerik? Juan Luis Zabala

Jendeak krokodiloak bainuontzian hazi eta haiekin aspertzean estolderietan **abandonatzen** dituen hiri batez ari gara. Harkaitz Cano

Bidelapurrei, beso-hankak hautsi ondoren, gurpila ematen zitzaien; plazako habe bati loturiko gurdi-gurpil baten gainean ezartzen zituzten eta hiltzen uzten, heriotza luzera kondenatuz, agonia mingarrira **abandonatuz** . Felipe Juaristi

Ceaucescuren garaietan 100.000 ziren **abandonatutako** haurrak. Berria - Mundua

2 (da aditz gisa) pasiboki amore eman.

Danielak begiak itxi zituen eta Paulen eskuetan **abandonatu** zen. Jasone Osoro

Hona iritsita, Berlusgoñi, arizale trebatuaren gisan, isilune luzean **abandonatu** zen. Jon Alonso

Eta zu, berriz, tximinietan **abandonatzen** zara! Itziar Otegi

Baina irakurtzen hasi eta hain ongi egin zuen -antzezlari trebea bailitzan-, non ezin izan nituen hitzak banan-banan jaso; esan nahi dut testuari **abandonatu** nintzaiola. Ramon Saizarbitoria

3 (gauzez mintzatuz)

Ez omen ditek trintxera **abandonatu** nahi. Bernardo Atxaga

Zenbait marinel zaharrek ontziko txakurrak legez egiten dute, ez dute baforea **abandonatu** nahi. Koldo Izagirre

Behiala merkantzia sartu-irten eta jarduera handia izan zuten lokal orain hautseztatu eta leihorik gabeak, laurogeiko hamarkadan [...] jonkien babesleku izandako komun apurtuak, dagoeneko geratzen ziren jonki apurrek ere leku erosoagoen mesedetan **abandonatuak**. Harkaitz Cano

Trumoi eztanda latz batek berritu zuen erasoa, etxe bazterretara eta taberna barruetara sakabanatu ziren dantzariak, kioskoa **abandonatu** zuten musikoek. Koldo Izagirre

Amaieran, etxea hutsik eta **abandonatua** aurkitu zuen, sasiak eta huntzak guztiz janda. Juan Luis Zabala

Hogeita hamazazpi urtetan arrakastarik izan ez duen borroka-mota **abandonatu** behar zenukete lehenbailehen, eta hori garbi ikusten ez duena itsua duk. Mikel Hernandez Abaitua

Kasamatan sentitu zuen gosea lehenengo aldiz, eta handik aurrera goseak ez zuen sekula **abandonatu**. Karlos Zabala

Egun osoan **abandonatu** ez ninduen buruko mina biziagoturik, garunak urratu beharrean nituen orain. Aingeru Epaltza

ETAk nazionalismo aranazalearen Jainkoarenganako sinesmen programatikoa **abandonatzean**, zera erabaki zuen, haren "Beste" nagusia ez zela beharrezko. Joseba Zulaika

Jaioberria zela, Santa Adalsindaren egunean utzi zuten **abandonatuta** komentu batean. Iñaki Arranz

Bide ertzeko zangetan auto matxuratuak **abandonatuta**. Josu Zabaleta

4 (adizlagun eta kidekoekin)

Oso **abandonatuak** dauzkagu sozialak, zailak dira harremanak baina. Koldo Izagirre

Hotelaren eta errepide nagusiaren artean orube bat zegoen, erdi **abandonaturik**, eta orubearen bazter batean txabola bat, hondakinez eta traste zaharrez beterik. Anjel Lertxundi

Guztiz **abandonatuta** naukazu, Mikel. Patxi Iturritegi

Berritzailea izan bazen ere, estilo klasikoa ez baitzuen behin ere arrunt **abandonatu** Gargallok. Berria - Kultura

Tamalez, Iñigok bere ondoan eserarazi nau jatetxera heldu bezain pronto, eta Charlyk doilorki **abandonatu** nau Ruben ezkongabe-berriagatik. Iban Zaldua

Mugaz bestaldeko plantazioa aspaldiko hilabete haietan zeharo **abandonatuta** zegoelako zurrumurruak ere ez gintuen ernarazi. Joxe Austin Arrieta

Ezin gaituzte horrela **abandona**! Karlos Linazasoro

Handik aurrera bakarrik egon zen Taibele, bi bider **abandonaturik**, aszeta batek lehenbizi eta deabru batek gero. Koro Navarro

5 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Haur bat eman zuela mundura eta soldaduek kendu eta haur **abandonatuen** etxera eraman zutela. Eneko Bidegain

Barkatu hain gaizki portatzen banaiz, baina askotan haur **abandonatu** bat bezala sentitzen naiz, beldurrak josia eta bakardadeak iltzatua. Joan Mari Irigoien

Hogeita hamahiru urterekin, emazte **abandonatua** zela konturatu zen Taibele. Koro Navarro

Atzo, adiskide ederra, arratsaldeko hiru orenetan, berriak berantesten nituenez, emakume eder **abandonatu** horren etxera joan nintzen; jalgi zela erran zidaten. Jon Muñoz

Elokuentziaz eta berotasun handiz hitz egin zuen mitin hartan; haur **abandonatuez**, eskaleez, emakume eroriez. Josu Zabaleta

Miseria gorrian zegoen ume **abandonatu** hura. Karlos Zabala

Lakuaren ertzera isil-isilka joaten zenean, taldeka ikus zitzakeen, batez ere **Abandonatuen** Haitzean, eguzkitan egoteko leku hori gustatzen zitzaien-eta. Julen Gabiria

Ehunka badira ehortziak ez direnak, osoki ahantziak, utziak, **abandonatuak**. Herria

Abere gaixo, **abandonatuak** balira bezala, beren hiltegi zikinetara eramaten dute jende gaixo hori. Josu Zabaleta

Tatariarrei aurre hartu zien, Tomsken geldiaraziak baitzeuden, eta, emirraren soldaduak Krasnoiarskera iristen zirelarik, hiri **abandonatu** bat baizik ez zuten aurkituko. Karlos Zabala

300 hektareako lur sail **abandonatu** batean. Berria - Mundua

Han egon beharko zukeen New Harlem hotelak, baina leihoak adreilu eta porlanez estalita zeuzkan eraikin **abandonatu** batekin egin nuen topo. Iñaki Zabaleta

Eliza **abandonatu** bateko isiltasuna zegoen han kanpoan, soro atze-atzean baratzez inguratutako patioan. Josu Zabaleta

Koipegin hordi batek labanorri zabal bat hondoratua zion lepoan, elkarrekin zeutzala, landa-arras, ehorztegi **abandonatu** bateko lauzen gainean. Juan Garzia

ESKULTURA BAT PARKE BATEAN, geltoki **abandonatu** baten ondoan. Eskarne Mujika

Nire lekua ez zegoen hirietako parke **abandonatuetan**, ez herri txiki bateko lasaitasunean ez eta lanordu errepikakorren segurtasunean ere. Pako Aristi

Destilategi **abandonatua** zirudien lokalak. Josu Landa

Miaketa xehea egin zen gaztelu **abandonatuan**. Josu Zabaleta

Uranio meategietan lanean zebiltzan indioak gordetzen ziren aterpe **abandonatuetan**. Itxaro Borda

Dagoeneko aipatu dugu suntsitzen ari den estatu unibertsal baten eremu **abandonatuan** sartzen diren barbaroak etorkizunik gabeko heroiak direla. Iñaki Mendiguren

Hala topatuko duzue ikatz harriz egindako eliza hondatu hori, ikatz meatzeak, bagoneta trabes eskoratua trenbide **abandonatuan**, burdinazko armazoiak, moila zaharra. Joseba Sarrionandia

-Hara, txinbo, ikusi duk hori? -galdetu zuen Gorkak orubearen beste muturra seinalatuz, pneumatiko-biltegi **abandonatu** bat zegoen aldera-. Patxi Iturritegi

Pendizean behera errekazuloraino eroritako auto **abandonatu** eta herdoildua. Juan Luis Zabala

Eta hemen berriz borda bat erdi **abandonatua**. Piarres Aintziart

Portziunkulako Andre Maria zeritzan eliza pobretxo eta ia **abandonatu** bat aurkitu zuten. Askoren artean

Mendialde guztia ibili dut goitik behera don Bartolomé San Juan ezkutatzen den txokoaren bila, harik eta azkenean topatu dudan arte, hango zulo batean galduta, enborrez egindako txabolamodu batean bizitzen, zera, La Andrómedako meatze **abandonatuak** non dauden ba hantxe. Juan Garzia

Izaki **abandonatuak** iruditzen zitzaizkion portaletako sofak, inon diren **abandonatuenak** igual. Unai Elorriaga

Auzo zahar **abandonatua**, arrotza zaion mende berri baten atarian. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abandonatu bat (10); **abandonatu batean** (8); **abandonatu bateko** (5); **abandonatu baten** (6); **abandonatu batera** (3); **abandonatu behar** (13); **abandonatu behar izan** (3); **abandonatu egin** (26); **abandonatu egin zuen** (5); **abandonatu egingo** (3); **abandonatu egiten** (4); **abandonatu eta** (16); **abandonatu ez** (4); **abandonatu gabe** (3); **abandonatu haur** (3); **abandonatu nahi** (5); **abandonatu ninduen** (8); **abandonatu nuen** (6); **abandonatu zen** (4); **abandonatu zenuen** (3); **abandonatu zuela** (3); **abandonatu zuen** (19); **abandonatu zuten** (8); **abandonatua izan** (4); **abandonatua zegoen** (6); **abandonatua zela** (3); **abandonatua zirudien** (4); **abandonatuen haitzean** (3); **abandonaturik zegoen** (3); **abandonatuta zegoen** (6); **abandonatzen zuen** (3); **abandonatzen zuten** (3); **aitak abandonatu** (4); **aitak abandonatu egin** (3); **eliza abandonatu** (3); **ere abandonatu** (4); **eta abandonatu** (7); **eta abandonatua** (8); **eta abandonaturik** (5); **eta abandonatuta** (4); **ez abandonatzeko** (3); **haurrak abandonatzeaz** (3); **inoiz abandonatu** (3); **sekula abandonatu** (3); **zergatik abandonatu** (4)

---

abandonatzaile *izond* abandonatzen duena.

Konprenitu nuen nik egin niela ihes, ni nintzela **abandonatzailea**, eta ez alderantziz, uste bezala. Bernardo Atxaga

abandonatze *iz* bazterrera, alde batera uztea; eskutik uztea; bertan behera uztea.

Gelaxkaren usainak, tabakoaren kearekin beroturiko usain likoretsu hark, mozkortu egiten zuen, zorion berezia ematen, bere buruaz ahaztarazten; eta, **abandonatze** hartan kulunkatzen zenean, konturik larrienak ere onartzeko prest egoten zen. Karlos Zabala

Baina, gero, Roryren gainean gaizki esaka hasi zen, bere alaba bakarra **abandonatzearen** errua egotziz, burutik ondo ez zegoela leporatuz, eta, gero, are eta txarragoa, ezkontzaren gaineko baieztapen ergel eta erreakzionario hura egin zuen. Oskar Arana

Zeren horixe baita hain zuzen ere ikustea eta ulertzea bere zentzu benetakoan, eta funts ororen gainetik dagoen hura gorestea, izakiak erabat **abandonatzearen** bitartez. Joan Mari Lekuona

abandonismo *iz* gurea den edo gureganatzeko eskubidea dugun zerbaiti uko egiteko joera.

Horregatik erakutsi du Erromak halako jakinduria Ekialdeko mistizismo eta **abandonismo** itsu haren izaera goxatzen. Patziku Perurena

abandono ik **abandonu**.

abandonu *(ETCn **343** agerraldi; orobat **abandono** ETCn **111** agerraldi) iz* abandonatzea.

Hormetan sugandilak zulotik zulora, eta, bidexkaren eskuin-ezker, mota guztietako sasiak, **abandonoaren** erakusgarri. Jokin Muñoz

Ez bakarrik ez zuen aukera aprobetxatu lurralde seguruetara alde egiteko, baizik eta berri txarrarekin itzuli zela, **abandonoa** eta traizioa iragartzen zuen mezua eman baino lehen hil zelarik. Jon Alonso

Munduaren krisiaren arrazoi hori "pentsamendu frantses" jatorraren (Ilustrazioaren) **abandonoa** da. Joxe Azurmendi

Hitzak falta ditut haren konbentzitzeko gaitasunaren norainokoa, haren **abandono** suharra adierazi ahal izateko.Behiala nire izenean eraikitzen hasi zen eliza bat topatuko duzu, eta nire irudi bat ere topatuko duzu, eta irudia zaharberrituko duzu, beharrezkoa izango du-ta **abandono** tristearen ondoren, eta gero hantxe egingo duzu bijilia, eta haurra aldarean ipiniko duzu. Koro Navarro

Raimundo Silvak ireki egiten du, barrurantz begiratu eta diafragman zanpatuko balute bezala sentitzen du, eta ez ausentziarengatik berarengatik, hutsaren, azken **abandonoaren** inpresio samingarri batengatik baizik. Jon Alonso

abangoardia *(ETCn **2.733** agerraldi; orobat **abanguardia** ETCn **62** agerraldi)* **1** *iz* talde armatu batean, aurrean doan zatia.

Arratsaldea zen jadanik **abangoardia** Amon Dînen ekialdeko aldapetatik harantzagoko oihan gris handietara iritsi zenean. Agustin Otsoa

Tatariarren tropen **abangoardiak** bertatik bertara mehatxatzen zuen hiria, eta agintariak bi ordu lehenago atera ziren Tobolsk aldera babes bila. Karlos Zabala

Badakizu nola bere omenezko festa baten erdian esan zioten Alexandro enperadoreari Napoleonek Neman ibaia igaro berri zuela Frantziako armadaren **abangoardiarekin**. Karlos Zabala

Gandalf eta Aragorn **abangoardiarekin** Morgulgo Haranaren sarrerararaino hurbildu ziren zamalka, hiri madarikatua ikusteko. Agustin Otsoa

Jendeak leku guztietatik ihes egiten zuen Feofar Khanen gudarostearen **abangoardia** aurreratu ahala. Karlos Zabala

Isaak Zeuner tenienteak herri asko igaroak zituen **abangoardiako** gizonekin. Felipe Juaristi

Astiro egiten zuten aurrera, uneoro erantzunaren zain, lerro trinkoagoetan, esploratzaileak eta **abangoardiako** talde txikiak bidaltzea gizonak alferrikaltzea zela ulertuz. Agustin Otsoa

-Nazionalak ofentsiban zetozenez, ez zidan luze jo haien **abangoardiako** tropekin topo egiteak. Alberto Ladron Arana

Behin Tomsken -esan eta esan ari zen bere artean, zenbaitetan gainezka egiten zion ezinegonari eutsi nahirik-, minutu gutxi batzuetan **abangoardiako** postuetatik harago izango nauk, eta hamabi ordu kendu Feofarri, hamabi ordu kendu Ogareffi, eta nahikoa izango diat haien aurretik Irkutskera sartzeko! Karlos Zabala

Lehenengo multzoko margolari gehientsuenak Frantzian egon ziren, ondorioz, urte haietan Europan gertatzen ari ziren **abangoardien** eragin handia ikus daiteke haien lanetan. Berria - Kultura

Goian Garibalditar **Abangoardien** bilera amaitu gabe zegoen oraindik; han goian ere, ohiz bestela, seriotasun handia zegoen, debozioa ia. Josu Zabaleta

2 irud/hed

Nik esango nuke Deustuko unibertsitatea **abangoardia** izan zela alde horretatik zeren eta guk marxismoa unibertsitatean ikasi genuen. Ana Urkiza

Edozein politika burges-nazionalistatatik urrutiratuta, langile-klasearen interesen defentsan jarri nahi ditu indar guztiak, haren **abangoardia** bihurtzeko. Rafa Egiguren

Fedearen zera hori ez diot nik; hori, beste hitz batzuekin, euskaltzaletasunaren **abangoardia** intelektualak dio. Iñaki Segurola

Bere ustez ez baitago askatasuna lortzerik **abangoardia** heroiko baten gidaritzapean. Txema Ramirez de la Piscina

Gerra guzti-guztietan, hitza da armen **abangoardia**. Anjel Lertxundi

Gonzalezek adierazi zuen "XXI. mendearen **abangoardian** " jarri nahi duela bankua, eta aurten "marka guztiak" hautsiko dituztela mozkinei, dibidenduei eta, oro har, erakundearen eraginkortasunari dagokienez. Berria - Ekonomia

Legearekin Espainiako ikerketa zentroak biomedikuntzaren **"abangoardiara** " eraman nahi dituztela esan zuen; "eta balio etiko eta moralen **abangoardiara** ere bai". Berria - Gaiak

3 bere ausartasunagatik aintzindari gertatzen dena edo gertatu uste duena.

XX. mende hasierako **abangoardia** bik, futurismoak eta kubismoak lagatako ondarearen inguruan eginiko gogoetaren emaitza. Berria - Kultura

Kosztolanyi XX. mendearen hasieran bizi izan zen, **abangoardien** garaian **Abangoardiaren** funtzio hegemonikoan ez dute sinesten: Gauzak hobeto doaz prozesuan parte hartzen ari den jendeak bere ekarpen historikoa egiten badu. Berria - Kultura

Belaunaldi berriko poeta gehienak aurreko belaunaldiko poetek harturiko bide estetikoetan barna abiatu izan dira: dela 60ko poesia sozialaren bidetik, dela 70eko **abangoardiaren** arrastoan, dela 80ko esperientziaren poesiaren magalerantz. Berria - Kultura

Bada gurean Lizardi erromantiko berantiartzat jo duenik, eta hogeigarren mende hasierako **abangoardiekin** lotzen duenik. Anjel Lertxundi

Abangoardiak argien zuen mezua hauxe zen: inoiz ez gerra gehiago. Berria - Kultura

Abangoardiek zineman izandako eragina aztertuko du Fasek, zikloaren bigarren atalean. Berria - Kultura

Bauhausek, 1920ko hamarraldian argitaratu izana, Alemanian pinturako, eskulturako eta arkitekturako **abangoardiako** artista gehienak elkartu zituen arte-eskola diziplinarteko handi hark. Josu Zabaleta

Juan Leon Kruzalegi ez zen **abangoardiako** pintorea. Edorta Jimenez

Musikaren, poesiaren, arte plastikoen eta beste guztien erakusleiho izan zen Iruñea astebetez, eta **abangoardiako** joerek diktaduraren arrasto beltza gainditzeko bidea hartu zuten.Kubako **"abangoardiako** pinturaren aitzindariak" izaniko Victor Manuel Garcia, Eduardo Abela eta Jorge Arche artisten lanak. Berria - Kultura

Euskal industrializazio prozesua erakusten du Operación H-k **abangoardiako** zinemaren bidez. Berria - Kultura

Estebanen lehengusua, hogei urterekin **abangoardiako** aldizkari literarioetan kolaboratzen zuena eta hogeita bostekin emaztea labankazoka hil eta bere burua trenera bota zuena. Bernardo Atxaga

Varsoviak **abangoardiako** tradizioaren ildoan egin zion harrera Literaturexpressoari asteazken iluntzean. Edorta Jimenez

Bide honetatik jo zuten XX. mendeko hogeigarreneko hamarraldiko **abangoardietako** artista askok. Josu Zabaleta

XX. mendeko errusiar **abangoardietako** lanen afitxak eskuratu nahi nituzke. Edorta Jimenez

Dalik bigarren **abangoardietako** artistaren ezaugarriak ere betetzen dituenez, hau da, gerra ondorengo artearen ezaugarriak, Pollock edo Warholen antza zuela kontuan hartu behar dugu. Berria - Kultura

Herbehereetako arkitektura eta diseinua beti izan da nahiko **abangoardiakoa**. Berria - Kultura

Argazkigintzan, arkitekturan bezalaxe, **abangoardiarako** eta esperimentaziorako joera erakutsi zuen. Berria - Kultura

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Garzanti edo Feltrinelli argitaletxeek ateak zabalik zituzten **abangoardia** kulturalean eta politikoan gero eta ozenago eta ausartago ari ziren idazleentzat: Pasolini, Gadda edo Arbasino; [...]. Anjel Lertxundi

Errusiako **abangoardia** historikoa deritzon artista taldea pintore errealista kritikoen aurka azaldu zen. Berria - Kultura

Artiumek 'Eskuratu berriak' erakusketa jarri du 2003ko erosketekin; artelan sortu berrien eta **"abangoardia** klasikoen" hutsunea bete dute. Berria - Kultura

Garai horretan Europako **abangoardiak** interesatu zitzaizkion. Ibon Uribarri

Ildo honetan, Koonsen Puppy Guggenheimen aurrean honela mintzo da: Europar **abangoardiak** hilak dira, Oteiza eta Chillida hilak dira; gaur egungo artearen Erreala erakusteko, Bilbo post-Guggenheim bat adierazteko, perspektiba artistikoen aldaketa da beharrezko. Joseba Zulaika

5 (hitz elkartuetan)

Halaber, Bloomsbury **abangoardia** taldeko kidea izan zen, Virginia Woolf eta beste hainbat idazle eta artistarekin batera. Iñaki Heras

Brossari dagokionez, "poesia bisualaren eremuan sekulako **abangoardia** lana" egin zuela deritzo Lasuenek. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abangoardia izan (3); **abangoardiako literatura** (3); **abangoardiako musika** (3); **emirraren abangoardia** (3); **eta abangoardia** (4); **eta abangoardiako** (3); **europako abangoardiak** (4)

---

abangoardismo *(ETCn **64** agerraldi; orobat **banguardismo** ETCn agerraldi **1**)* **1** *iz* abangoardia higikundea.

Abangoardismoa da euskal hiztegian ageri den lehendabiziko ismoa. Berria - Kultura

Gure irakurle-kopuru urria zabaltzeko ahaleginean ia ahaztuta geneukan esperimentaziorako, **abangoardismorako**, literatur jolaserako ohitura berreskuratzen digu Elorriagak, eta eskertzekoa da. Unai Elorriaga

Antzerkigintza modernoak, zorionez, forma tradizionalak gainditu ditu hainbat berrikuntza-olderi esker: Pirandello, Bernard Shaw, Brecht eta beste hainbaten ekimenez, absurduaren teatroa, gaitzespen-teatroa eta **banguardismo** esperimentala landu dutenak. Berria - Kultura

---

abangoardista *(ETCn **562** agerraldi; orobat **abanguardista** ETCn **16** agerraldi) izond* abangoardismoari dagokiona; abangoardismoaren aldekoa.

Amets **abangoardisten** irudiak. Berria - Kultura

XX. mende hasierako artista **abangoardisten** ereduaren arabera baloratutako Daliren ibilbidea aproposa iruditu zaigu eta eredu bera erabili izan dugu gerra ondoren egin zituen lanak baloratzeko. Berria - Kultura

Geroago ikasi ahal izan nuenez, idazkaria zen berez ia erabat argitaletxeaz arduratzen zena, Lydie Vidalek ordu asko ematen baitzituen bere eleberri **abangoardistak** idazten. Harkaitz Cano

Prudenen etxea ikastolaren eraikinari itsatsita zegoen, ekialdeko hegal zuzen-zuzenari ateratako pikorta txiki bat bailitzan, eta haren formak ez zuen, lehenengo begiradan behintzat, ikastolaren arkitektura **abangoardista** harekiko inolako loturarik. Iban Zaldua

Nahikoa itxura **abangoardistako** lana zen, edo hala iruditzen zitzaidan niri garai hartan behintzat. Iban Zaldua

Eskola, ospitale, fabrika eta horrelako komunitateetan egun luxuzko lunchetan edo hegazkinetan bezala banatuko da janaria: aurkezpen polita, anoa txikiak, baxera **abangoardistan**, aseptikotasunerainoko higienea hamaika bilgarritan babestua, nutrizio aldetik perfektuki orekatua, kromatismo, zapore eta usain erakargarrikoa. Edorta Agirre

Garai batean euskal literaturako aurrekari moderno eta **abangoardista** batekin egiten genuen amets: Rimbaud edo Verlaine euskaldun bat, gure Bilintx edo Elizanburu bertangoxozaleen ordez. Xabier Mendiguren Elizegi

Giroaren bizkarrezurra musika da, musika klasiko-**abangoardista** zuzenean jokatua. Edorta Jimenez

Orrietan aurrera egin ahala, ipuin modernoago eta **abangoardistagoak** aurkituko ditu irakurleak Harkaitz Canoren Briko-Higuina, kasu. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta abangoardista (3)

---

abanguardia ik **abangoardia**.

---

abanguardista ik **abangoardista**.

---

abanikatu, abanika(tu), abanikatzen du *ad* haizeari eragin abanikoa astinduz.

Alabaina, ez zuen Lombo de Tanque utzi nahi izan arrazoi nagusi bat argudiatuz: Mira-Mar Gainean ez zuen ezagutzen **abanikatu** edo azukre ura emango zion inor berriro ondoezik jarriz gero. Bego Montorio

---

abaniko *(ETCn **321** agerraldi)* **1** *iz* haizemailea.

Bokalean jadanik, ateko bandara begiratuko duzu, zabalera, eta **abanikoa** bezala zabalduko da itsasoa, urdin ilun eta ia zimurrik gabe, bare barea eta mantxa berdeak ur azalean noraezean. Joseba Sarrionandia

Mediterraneoaren zerrenda zilarrezkoa hiltzen entzuten zen, eta haren oinean, lerro urdin distiratsuzko **abaniko** bat zabaltzen zen zeru-arraseraino. Juan Garzia

Plaza nagusia promenatzailez betetzen da; solasak **abanikoen** gibelean ezkutatzen dira. **Abaniko** zabal batek itxura hobea ematen duela. Koldo Izagirre

Adin, kultur maila, lanbide eta joera ezberdineko euskaldunen **abaniko** zabal xamarra. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Abaniko astinduek eragiten duten harrabotsa. Koldo Izagirre

Ondoan daukazun atsoaren **abaniko**-airea harrapatzen saiatu zara alferrik. Eider Rodriguez

Sabaiko habeen **abaniko** gisako eskortzoari. Juan Garzia

2 irud/hed

30 pieza hauekin, **abaniko** ireki eta koloredun bat eskaintzen ari naizelakoan nago. Berria - Harian

Istorioak, fantasia, eta pertsonaien **abaniko** zabala eskaintzen digu Elorriagak bere azken lan honetan. Berria - Kultura

Gaur bertsolarien artean **abaniko** zabalagoa da; iritzi politikoak ugariagoak dira. Berria - Kultura

Lerroak elkartu egiten ziren, gurutzatu, **abanikoan** zabaldu pergaminoaren izkina bakoitzerantz. Iñaki Mendiguren

---

abant *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi; orobat **abante** ETCn **227** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **abant** agertzen da)* **1** *iz/adlag* itsasontzietan, aurrerantz egitea. ik **abante**.

Bada, Armada Txit Zorionekoak aurrera egin zuen, astiro, airos, harro, Plymouth atzean utziz, **abant**. ETC-literatura, saiakera

"Ez ipini esne-gain eta txokolatezko tuturik" esan nahi dio, baina hitzek ez dute topatzen lekurik **abant** geldiezin, eutsiezin horretan. ETC-literatura, saiakera

17: 30ak ziren Matti pertsonaiak "Izan Pirata, elkarrekin **abant**, abordatzera!", esan eta txupina bota zuenean. ETC-prentsa

Gazte zein heldu, elkarrekin **abant**! da piratek aurtengo Aste Nagusirako aukeratu duten leloa, eta horren bitartez aste nagusi parte-hartzaile bat bultzatzen saiatuko dira. ETC-prentsa

2 ***abant egin*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Baina ez zeundeten arraun-lanean uste bezain zailduak, eta **abant egiten** hiru ordu pasa ostean ipurmamiak urratuta zenituzten eta eskuak haragi bizian. ETC-literatura, saiakera

---

abantada *(orobat **abantara**)* **1** *iz* bultzada, abiada.

Autoa **abantada** handian atera da, eta berehala gaude Obabako sarreran. Bernardo Atxaga

Hasieran horia gorri bihurtu eta gero, gero urdina atzetik joan eta haiek harrapatu, eta bitartean berdea iritsi eta aurrekoak gainditu, eta halere zuriak irabazi, sekulako **abantadan** baitzihoan; izanez ere, azkenean zuria gelditu zen bakarrik uhinak egiten. Fernando Rey

Sartzen zara **abantadan**, eta sarreran poltsa eskaneatzen dizute; ez litzateke erakusketa txarra izango: ikusleen poltsa eskaneatuak, museoko paretetan proiektatuta. Berria - Kultura

Gaua etorri zen gero, eta egunak **abantadan** joan ziren hurrena, eta belarrak bere lekua hartu zuen berriro. Berria - Kultura

2

Halako **abantadak** zeuzkan aitak, etxean berak agintzen zuelakoa egin behar izaten zuen aldian behin. Koldo Izagirre

---

abantail ik **abantail**a.

---

abantaila *(ETCn **15.947** agerraldi; orobat **abantail** g.er.)* **1** *iz* norbaitek edo zerbaitek duen lehentasuna edo nagusitasuna; onura, probetxua. ik **bentaja**.

Ahal izan dudan neurrian azaldu ditut hormei buruzkoak eta horma-moten araberako materialen erabilerari buruzkoak, zein **abantaila** eta zein eragozpen dituzten. Santiago Iruretagoiena

-Eragozpenak ez dira deus **abantailen** aldean -erantzun zion Willemek, markesaren kortesia buru-mugimendu arin batez eskertu eta gero-. Anjel Lertxundi

Asko dira etxerik ez izatearen desabantailak, dudarik ez, baina **abantailak** ere baditu: [...]. Harkaitz Cano

Labur esanda, ulertu dut batak bestearekin banatzen dituela **abantaila** eta desabantailak, pozak eta tristurak, oztopo eta arazo guztiak, baina baita euren ondasun eta anoak ere: alegia, lagunak direla, esan ohi denez. Urtzi Urrutikoetxea

Horietako mota bakoitzean aurkitzen diren **abantailak** eta akatsak aipatuz. Santiago Iruretagoiena

Yorgos Séferis greziarrak **abantaila** deitzen dio nik pagotxa deitu izan diodanari. Anjel Lertxundi

Zenbait arazorekin gehiegi kezkatzeko desabantaila eta beste arazo batzuekin gutxiegi arduratzeko **abantaila**. Harkaitz Cano

Guti ematen dut, baina guti eskatzen ere, eta hori **abantaila** da beti inoren estimua gureganatzeko tenorean. Aingeru Epaltza

Ihes dabilenak badu **abantaila** hori: errorik gabe, lekuak ez dira loturak. Anjel Lertxundi

Lan berriak beste **abantaila** batzuk ere bazituela konturatu nintzen. Bernardo Atxaga

Bertsolariek etena egin beharra muga baino **abantaila** dute beren sorkuntza prozesuan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Harri bigun horiek guztiek **abantaila** bat izaten dute, alegia, harrobitik atera ondoren erraz landu daitezkeela. Santiago Iruretagoiena

Abantaila ugari ditu zutikako jarrerak -esate baterako, eskuzko trebetasunak garatzeko aukera ematen du-, baina gauza nabarmena da arazoak ere sortzen dituela. Irene Aldasoro

Ikatz-meategiek erregaiaz hornitzen dituzten herrialdeek **abantaila** hau dute besteen gainean, han ez dela basorik behar, eta lur guztiak lan daitezkeela. Iñaki Iñurrieta

Ronak **abantaila** zera du, ez duela garagardoak bezala izerdirik eragiten. Joxe Austin Arrieta

Berregite-ahalmenean zetzan haien **abantaila**. Juan Garzia

Hortaz, nahiz maizenik gizakiak beren irritsen arabera gobernatzen diren, kalte baino **abantaila** gehiago heldu zaie gizarte komunetik. Piarres Xarriton

Ustekabeak emango digu **abantaila**. Joanes Urkixo

Beraz, **abantaila** zaramakidak, ezta? Juan Garzia

Nola erabili teknologiaren **abantailak** teknologiaren atzaparretan jausi gabe? Txema Ramirez de la Piscina

Adimena kontrolatzearen **abantailak** deskubritu zituen hiriko hotel dotore batean. Aingeru Epaltza

Deskokatzearen aurrean pisuzko industria sarea eta enpresaburu belaunaldi berria **abantaila** direla uste du Iraolak. Berria - Ekonomia

Frantziaren **abantaila** da ordezkoak badituela titularren parekoak. Herria

Orotarat: 28 eta 23, erran nahi baita bost punduren **abantaila**. Herria

Berdindua da, duela hiru egun dagoeneko, gauaren eta egunaren oreka: 6 minuturen **abantaila** hartuko dio gaur arratsean egunak, gauari kenduta. Pello Zabala

Nahiz zuen arteko elkarrizketan zuk **abantaila** hartu zenion, bere gutunean hark zaitu garaitu. Jon Muñoz

Zer **abantaila** dakarkio bada nire alabari aberats jaio izanak, baldin hala eta guztiz ere asturuaren esklabo behar badu izan? Jon Muñoz

Abantaila indargabetzea. Berria - Euskal Herria

Puntu bakarreko **abantaila** duzue zuek Astillerorekiko. Berria - Kirola

Frantzian, gremioen **abantailak** ez ziren 1776 arte ezabatu, Turgot-ekin. Koro Navarro

Arma termonuklearren **abantailen** jarraitzaile sutsua zen. Fernando Morillo

Baliteke, bada, energia-kostu gehiagoren beharrik gabe segurtatu izana gizakiak zutikako jarreraren **abantailak**. Irene Aldasoro

Zer pena ahantzi duzula ardien **abantailak** eta mozkinak aipatzea, ardien bildotxa, ardien esnea, ardien gasna. Herria

Zientzialariaren eginkizuna zera da: haiei azaltzea zein den egoera, bere aukerekin, bere **abantailekin**, bere arriskuekin. Juan Garzia

Ez diot Brunori pentsatu berri dudana kontatzen, berak jendearen jarrera "txintxo" eta ergel horri bakarrik erreparatzen baitio, hots, jendeak errukior izateari ateratzen dion **abantailari**. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hala arima ere ez baita sakabanatzen, **abantaila** ederra baita hori. Juan Garzia

Bai, ederra da, zinez, gaitzaldi iraganak kontatzea, eta irakurleak **abantaila** garbia du: gaitzaldiotatik fisikoki pasatu gabe dasta dezake kontaketa horren ederra. Juan Garzia

Abantaila handi bat du itsasoak bizileku izateko: itsasoan, ia zeharo neutralizatuta dago grabitatea; Itsas aseguruko sozietateek, Europako portu handi guztietan sortu zirelarik, **abantaila** handiak eman zizkioten itsas merkataritzari. Irene Aldasoro

Eta bai, hor zen orobat beste **abantaila** bikoitz bat, Tom eta biok bizkarra leiho horiei emanez esertzea gertatu zela. Oskar Arana

Cumhailen taldeak **abantaila** txikia zeraman eta zubira besteak baino lehenago helduko zirela zirudien. Joanes Urkixo

Abantaila engainagarria. Berria - Kirola

Bistan da, felagek **abantaila** franko dute zuen aldean. Xabier Montoia

Teologia moral honek espekulatiboaren aldean **abantaila** berezi hau du: berak ezinbestean jatorrizko zerizan bakar, orobetegina eta arrazoizkora gidatzen duela. horrelako soldata apalak izatea ez zen izan eta ez da herrialde horien **abantaila** bakarra. Ibon Uribarri

Abantaila nagusiak hiru dira. Berria - Gaiak

Errusiarrak irabazleen aldean aurkitzearen **abantaila** bidegabeaz baliatu ziren. Iñaki Mendiguren

Ezkontza haiek ez zieten ematen inolako **abantaila** zibilik; dotea emaztea hiltzean iraungitzen zen. Iñaki Iñurrieta

Afera publikoak **abantaila** pribaturako bideratzea. Xabier Olarra

Abantaila indibidualak eskuratzeko joera hau, guztien onura unibertsalari ezin hobeki lotzen zaio. Iñaki Heras

Listoenek azken denboran **abantaila** intelektual hori **abantaila** material nola bihurtu asmatu baitigute. Joxe Azurmendi

Euskaltzaletasun hutsak ala euskara erabiltzearen **abantaila** komertzialak?. Berria - Kultura

Azterketa formaldatzaileak garrantzi handiko **abantaila** kontzeptualak eskaintzen ditu gramatika sortzerakoan. Itziar Laka

Abantaila konparatibo handienak dituen ekoizpenean espezializatzea. Koro Navarro

Epe jakin batera, debaluazioak aldi baterako ekarri zuen **abantaila** konpetitiboa galduko litzateke. Iñaki Heras

Nago **abantaila** izugarria dela seme sasikoa izatea, betiere ezkutuan maitatzeko baldintza betetzen baldin bada, horrelako semeek aparteko **abantaila** baitute: ez dute sortzen gure duintasuna lardaskatuko luketen eragozpenik. Bego Montorio

Oharrarazi behar diat ez dakidala ondo jokatzen, nolabaiteko **abantaila** eman beharko didak, beraz. Jose Morales

Ricardok frogatzen du produktibitatean (eta kostuan, beraz) erabateko **abantaila** duten herrialdeek ere izaten dutela interesik trukean. Koro Navarro

Jonathani, berriz, ez baitzuen eskatu berak ematea bikoteari hasiera, aski zitzaion jatorrizko **abantaila** hura. Jon Muñoz

Ukaezineko **abantaila** tekniko hori, baina, arazo ere bada askoren ustez. Berria - Gaiak

Estrategia hori konparaziozko **abantaila** berriak lantzean datza, eta, horren ondorioz, etekinik hoberena ateratzen zaio munduko eskariaren luzerako joerari. Koro Navarro

Hamid Karzai presidentetzarako hautagaia bere arerioekiko **abantaila** areagotzen ari da. Berria - Mundua

Kopisten garaikideak diren idazleak naturaltasunez baliatzen dira arrasto horien **abantaila** begibistakoez beren lanean. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan)

Ez dakiela zer **abantaila** klase aurkituko zuen han, bestetan aurki ez lezakeenik. Posizio hori, Holandak garai hartan eskuratu zuen lehiakortasun-**abantaila** adierazten zuena, orobat ulertzen da bere barnemerkatu txikiagatik. Imanol Zurutuza

Ekonomi **abantailaren** estimuluak bultzatu zituen neguan izozturiko itsasoaren ondoan edo gainean egoteko. Iñaki Mendiguren

Inbertsioak konkurrentzia-**abantaila** argia duten ekoizpenetan kontzentratzea. Koro Navarro

Pariseko Batzarrak pribilegioak eta jauretxe-**abantailak** oro ezeztatu zituen, probintzia, printzerri, kantonamendu, hiri bai eta komunitate eskubideak barne. Elena Touyarou

Ez dakigula txiki izatearen **abantailari** etekinik ateratzen. Ana Urkiza

4 ***abantaila eraman*** *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Egun bat eta gau bateko **abantaila zeramakion** gutxi gorabehera. ETC-literatura, saiakera

Haren ahotik estreinakoz biraoa entzun izanak, hala ere, ia urtebeteko **abantaila neramala** gogorarazi zidan. ETC-literatura, saiakera

Hamar urteko **abantaila daramate** han komunikazio kontuetan, eta beste gauza guztietan ere bai, egia esateko. ETC-literatura, saiakera

Kalbinismoak -hara zer bide bihurritatik agertu zaigun berriro- **abantaila baitarama** euskalgintzan: igarrezinak, baiki, Jainkoaren burubideak. ETC-literatura, saiakera

Rajicek eta Hermidak bikain jokatu zuten, behin eta berriro, pibote gaztearekin, eta Galdarrek bi goleko **abantaila eraman** zuen atsedenera. ETC-prentsa

Antza denez, lehiaketa horretan puntu handiko **abantaila neraman**, aurreko kanporaketetatik. ETC-prentsa

Ezin ukatu Eliza beti ama eta maistra izan dela estetika kontuetan, eta horretan mendeetako **abantaila eramaten** digu besteoi. ETC-prentsa

Guduek -idatzi du Zirionek-, lekualdatzeek eta gizakien sufrikarioek bi hilabeteko **abantaila zeramaten**. ETC-prentsa

Marka horiek, baina, urteetako **abantaila daramate**, eta lan handia egin beharko dugu. ETC-prentsa

Atzo goizeko albisteek zioten PANek %1 inguruko **abantaila zeramala** laginketa bukatu baino lehentxeago. ETC-prentsa

Obamak **abantaila darama**, ordea; azken inkesten arabera, hamalau puntuko aldea atera baitio Arizonako senatariari. ETC-prentsa

Genero indarkeriak mendeetako **abantaila daramakigu**, eta ez da erraza genero eraso eta ezberdintasunekin amaitzea. ETC-prentsa

Enpresa handiek **abantaila daramate** txiki eta ertainekiko. ETC-prentsa

Egia da, ordea: santu izateko, kristau arruntei **abantaila eramateko** ez da aski agurtzea, borondate gaiztorik ez edukitzea eta ez eskandalurik ere ez ematea. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***abantailaren lege*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aurreko jokaldian, epaileak gol bat baliogabetu zion Oierri, **abantailaren legea** aplikatu beharrean penaltia adierazita. ETC-prentsa

6 ***abantailatan***

Ororekin berdinkatzen zintudan; orotan zu zinen **abantailatan**. Jon Muñoz

7 *-en* ***abantailetan***

Denentzat ikusten da lana badela bakotxak eman dezala bere hoberena sanotasunean herriaren **abantailetan**. Herria

Ziburutarrek erran zioten erregeari Frantziaren **abantailetan** zutela berritu nahi Zokoko portua, bestenaz untzi frango mugaz haindiko portuetarat joanen zela, eta hori Frantziako erresumaren kalte handitan! Herria

Aipatu dut, lapidariotasunaren **abantailetan** babesturik, interesgarri litzatekeela Borgesenetan ageri ez diren gaien zerrenda egitea. Juan Garzia

Joanesen eta etxekoen **abantailetan** zen hitzordu haren ez hutsegitea, guti aski baitzuten SS-ek frantses armadako gerlaria berriz haien lurretara eramaiteko. Eneko Bidegain

Arropa gutiago askiko, etxe, bulego eta lantegiak ez hainbeste berotu beharko neguan ere, beharbada batere berotzerik ez, denen buru gure **abantailetan** litakeela. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abantail bat (8); **abantail batzu** (3); **abantail doi** (3); **abantail eta** (4); **abantail handia** (5); **abantail haundia** (6); **abantail ttipi** (3); **abantail ttipi bat** (3); **abantail ttipia** (3); **eta abantail** (5); **zer abantail** (5)

abantaila asko (11); **abantaila asko ditu** (3); **abantaila asko eskaintzen** (3); **abantaila atxiki** (4); **abantaila bakarra** (6); **abantaila baliatu** (4); **abantaila bat** (39); **abantaila bat du** (4); **abantaila bat ere** (3); **abantaila batzuk** (10); **abantaila batzuk ere** (6); **abantaila da** (36); **abantaila dauka** (3); **abantaila ditu** (4); **abantaila du** (9); **abantaila duela** (3); **abantaila dugu** (3); **abantaila dut** (3); **abantaila dute** (7); **abantaila eman** (7); **abantaila emango** (5); **abantaila ematen** (12); **abantaila erabakigarria** (3); **abantaila ere** (11); **abantaila eta** (10); **abantaila ez** (5); **abantaila fiskalak** (5); **abantaila galdu** (4); **abantaila gehiago** (9); **abantaila gutxi** (4); **abantaila guztiak** (9); **abantaila handi** (14); **abantaila handi bat** (10); **abantaila handia** (50); **abantaila handia da** (15); **abantaila handia izango** (4); **abantaila handiagoa** (8); **abantaila handiak** (25); **abantaila**

handirik (3); **abantaila handitzeko** (3); **abantaila hartu** (25); **abantaila hartu dute** (5); **abantaila hartu zuen** (3); **abantaila harturik** (3); **abantaila hartuz** (3); **abantaila hartzen** (3); **abantaila hau** (8); **abantaila hauek** (3); **abantaila hori** (31); **abantaila horiek** (10); **abantaila horiek guztiak** (3); **abantaila horrekin** (4); **abantaila izan** (17); **abantaila izan daiteke** (5); **abantaila izan zuten** (3); **abantaila izango** (13); **abantaila izango du** (3); **abantaila izaten** (3); **abantaila konparatibo** (3); **abantaila konparatiboen** (6); **abantaila lortu** (6); **abantaila lortu zuten** (3); **abantaila lortzeko** (3); **abantaila nabarmen** (3); **abantaila nagusia** (8); **abantaila polita** (5); **abantaila politikoa** (4); **abantaila txiki** (27); **abantaila txiki bat** (26); **abantaila txikia** (17); **abantaila txikia da** (4); **abantaila ugari** (4); **abantaila zuela** (3); **abantaila zuten** (3); **abnbantaila lortzea** (3); **aldean duen abantaila** (3); **baditu hainbat abantaila** (3); **badu abantaila** (10); **badu abantaila bat** (5); **baina abantaila** (7); **baino abantaila** (5); **bartzelonak abantaila** (3); **baten abantaila** (9); **bere abantaila** (5); **beren abantaila** (4); **beste abantaila** (21); **beste abantaila bat** (13); **beste abantaila batzuk** (5); **bestelako abantaila** (4); **beti abantaila** (3); **bi abantaila** (6); **bi goleko abantaila** (4); **bozen abantaila** (3); **bozetan abantaila** (3); **da abantaila** (10); **dien abantaila** (7); **dituzten abantaila** (3); **du abantaila** (9); **duen abantaila** (21); **duen abantaila nagusia** (3); **dute abantaila** (8); **dute abantaila hartu** (3); **duten abantaila** (4); **ematen dien abantaila** (3); **ematen duen abantaila** (4); **ere abantaila** (9); **ere abantaila da** (3); **eta abantaila** (34); **eta hori abantaila** (18); **eta horrek abantaila** (8); **etxean jokatzea abantaila** (8); **ez da abantaila** (3); **ez du abantaila** (3); **gol abantaila** (7); **goleko abantaila** (6); **guk abantaila** (3); **gure abantaila** (3); **hainbat abantaila** (8); **hori abantaila** (22); **hori abantaila da** (8); **hori abantaila handia** (4); **hori abantaila izan** (3); **horien abantaila** (5); **horrek abantaila** (16); **horrek abantaila handiak** (5); **horrek badu abantaila** (3); **hortik landa abantaila** (4); **izan zuten abantaila** (3); **izana abantaila** (3); **izatea abantaila** (3); **izatea abantaila handia** (3); **izateak abantaila** (3); **izatearen abantaila** (5); **jakiteak abantaila** (3); **jokatzea abantaila** (13); **jokatzea abantaila da** (3); **jokatzea abantaila txiki** (3); **ko abantaila** (3); **landa abantaila** (4); **landa abantaila atxiki** (3); **oraingoan abantaila** (3); **punduren abantaila** (4); **taldeak abantaila** (4); **tantoren abantaila** (3); **zein abantaila** (3); **zenbait abantaila** (4); **zer abantaila** (11); **zuen abantaila** (7); **zuten abantaila** (5)

abantailak ditu (6); **abantailak ematen** (4); **abantailak ere** (13); **abantailak ere baditu** (5); **abantailak eskaintzen** (5); **abantailak eta** (20); **abantailak eta desabantailak** (7); **abantailak ez** (3); **abantailak izan** (3); **abantailak izango** (3); **abantailak oro** (3); **bere abantailak** (7); **berriaren abantailak** (3); **dituen abantailak** (9); **dituzten abantailak** (3); **ere abantailak** (3); **eta abantailak** (7); **haren abantailak** (5)

abantailaren bat (5); **abantailaren bat izan** (3); **abantailari esker** (3); **abantailarik ematen** (3); **abantailarik ez** (3); **abantailarik gabe** (4); **abantailarik handiena** (4); **abantailaz jokatzen** (4); **abantailetako bat** (8); **du abantailarik** (3); **eta abantailari** (3); **ez du abantailarik** (3); **inolako abantailarik** (10)

---

abantailadun *izond* abantaila duena.

Bi gizakien arteko elkarte batean, ezinbestekoa da elkartekide bati boto haztatua ematea, oinarri hartuta **abantailadun** sexuari aitortzen zaion lehentasuna. Iban Zaldua

---

abantailatsu *izond* abantailaz betea.

Nire kezka areagotua du Gercourt jaunaren etorrera hurran-hurranak; hain ezkontza **abantailatsua** beharko dut bada hautsi? Jon Muñoz

Zientzien arloan funtsezko aldaketa hau gertatu den arren, eta arrazoimen espekulatiboak bere orainoko ustezko jabegoa galdu behar izan duen arren, hala ere, beti izan duen egoera **abantailatsu** berberan dirau giza egiteko orokorrei dagokion guztiak. Ibon Uribarri

Tolerantzia hau, antimilitarismoaren forman, **abantailatsua** gertatuko da kanpotar erasokorrentzat. Iñaki Mendiguren

Beti pentsatu izan dudalako eskola dela pobrearen irtenbidea, nik bizitakoagatik bai baitakit nahikoa dela bosgarren kurtsoa gazte bat estutasunetik ateratzeko, bai hemen bai Afrikan, eta ez da bulegoburu posturik edo bankari lanpostu **abantailatsurik** faltako. Bego Montorio

Merkataritza hori, Espainiari oso zeharka doakiola badirudi ere, horretan ari diren nazioei bezain **abantailatsu** zaio. Iñaki Iñurrieta

Nahiago izan zuen garai hartan Frantzia zen artearen eta kulturaren eremu **abantailatsura** itzuli, kontuan harturik bestalde, *american way of life* hark ez ziola, ezta alderdi materialean ere, gauza handirik eskaintzen ororen gainetik *bon vivant* zen Marcel Martini. Ramon Saizarbitoria

Handik gutxira, nire anaia goikaldean ikusten nuen, oso puntu **abantailatsuan** , eta bitartean nik atzera egin beharra neukan benetako bidatzur ona hartzeko, eta hartara, nire errazkeriaren erruz, anaiaren bi halako kostatu zitzaidan igoera. Bernardo Atxaga

Zuk badakizu fisiologoek frogatua dutela gure zentzumenak erabiltzen ditugunean joera dugula gauzak modurik zehatzenean ez baina modurik ekonomikoenean, **abantailatsuenean** , baliagarrienean atzemateko. Josu Zabaleta

---

abantailatu, abantaila(tu), abantailatzen **1** du *ad* abantaila eman.

Emakume hori arras goresten dudala irudituko zaizu ausaz, ez du aspaldi apalesten nuelarik; ez zera: ez baitut hura **abantailatu** ; zu baizik: horra zer gauza jostagarria eta zinez zoragarria. Jon Muñoz

2 (izenondo gisa) abantaila duena.

Ur De la Piscina ikasle **abantailatuak** , unibertsitateko egun aspergabe haietako batetan, arrazoia suz egina zela ikasi zuen, Prometeok Zeusi ebatsi zion su hartaz egina. Iñaki Segurola

Erosen ikasle **abantailatua** zen neurrian, harreman erotikoen hariak ehoteko abilezia aparta zuen Montsek. Joan Mari Irigoien

Estatuak Europako "solaskide **abantailatuak** " diren heinean, gainera, ez da egoera aldatuko eta estaturik gabeko nazioek eta eskualdeek "mugak" izaten jarraituko dute Europako Batasunean zuzenean parte hartzeko. Berria - Euskal Herria

Dialekto bat guztientzako hizkuntza ofizial bihurtuz gero, nezkez iraungo du bere hartan dialekto **abantailatu** horrek. Isabel Arrigain

---

abantailatxo *iz adkor* abantaila.

Berak duen **abantailatxoa** da jada partida bat jokatu duela, eta hori buruz burukorako bada alde txiki bat. Berria - Kirola

Ikuspegia aldatze honek badu gainera beste **abantailatxo** bat. Andoni Egaña

Gauzen pentsatzaile eta munduaren miatzaile bezala, hau da, kulturalki, euskaldunok baditugu desabantaila askoren artean **abantailatxo** batzuk, bazterrak aurrera begiak irekita ibiltzeko. Joxe Azurmendi

Begira, datu bilketak egindakoan, **abantailatxo** hori izaten da: noiztik behin errepasotxo bat emateko egokiera. Pello Zabala

Gaur egun, jakina denez, ez dago andre txarrik, eta horrek ere badu bere **abantailatxoa** . Joxerra Garzia

---

abantailazko *izlag* abantailak dituena, abantaila ematen duena.

Bizkaiko Aldundiko diputatu nagusi Jose Luis Bilbaok ukatu egin du EAJrekin lotura duten zenbait zergadunek **abantailazko** tratua izan dutenik. Berria - Euskal Herria

Turkiako lehen ministroak argi berretsi zuen Ankarak arbuio diola EBko herrialde batzuetako agintari eta indar politikoek aipatutako **"abantailazko** elkartze" baten formulari. Berria - Mundua

Oso eskote oparoa zuen, eta are oparoagoak iruditu zitzaizkidan haren atsegingarriak -lorategiak eta baratze sekretuak-, nire begiek, beren **abantailazko** posiziotik, sumatzen zituztenak. Joan Mari Irigoien

Askotan gertatzen zaie gizon erlijiosoei ohoreak, **abantailazko** egoerak eta antzeko gauzak nahi dituztela, baina Jainkoak ez dituela bide horretatik eraman nahi. Joan Mari Lekuona

---

abantailos *(orobat **abantailoso**) izond* abantailatsua.

Ortzegun gaueko nire erretreta destenorekoak alderdi **abantailos** bat bazuen, bederen. Aingeru Epaltza

Erran behar da, han diren ikusgarri guzien gainera, prezioak ere **abantailosak** zaizkiela kanpotiarreri European Bankuekin borrokatu, ahalik eta mailegurik merkeena erdiesteko; saltzaileak lausengatu, erosketa **abantailosena** egin beharrez. Herria

Berehala limurtu ninduen lau botilak ordaindu eta ziztuan lekutzeak niretako izanen zituen alderdi **abantailosoez** . Aingeru Epaltza

---

abantailoski *adlag* abantailaz.

Begietara so ginaudela, Arantxak **abantailoski** ordezkatzen ahalko ninduela zioen bitartean, esku ahurra papoan lerra arazten zidan. Itxaro Borda

---

abantailoso ik **abantailos**.

---

abantara ik **abantada**.

---

abante **1** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **abant** agertzen da) iz/adlag* itsasontzietan, aurrerantz egitea. ik **abant**.

entzuten nuenean **Abante** gustixe! Berria - Kultura

Min egiten duen eskua zara, eta sendatzen duen eskua aldi berean, lemaren gobernuarekin **abante** librean, ice will, iceberg lemazaina sentituko zara. Joseba Sarrionandia

Abante, edo atzera, berdin dik, agudo Seoane! Koldo Izagirre

2 ***abante egin*** du *ad*

Nik uste nuen **abante** eginen zuela Florenek haizearen barrura, orduantxe entzunen genuela bere ahots mehe barnagarria, baina burumakur zegoen, jotako toilaren antzera gelditu ginen denok, eta aldamenean nituenak beha hasi ote zitzaizkidan, nor dugu hau, zergatik ez du barre egiten... Koldo Izagirre

---

abantean **1** *adlag* itsasontzietan, aurrerantz eginez.

Abantean abiadan doiak alde hori. Edorta Jimenez

Abantean hasi zen inoiz baino kukutuago, luze eta erdi aitzinatzen genuela palada bakoitzean, eta azala maltrata gabe, gozo, isilean. Koldo Izagirre

' **Abantean** dena! ' deiadar egiten zuen Juan Bautistak, popan zutik, patroiaren erramuari eutsirik. Joseba Sarrionandia

Jakina zegoen, bizpahiru segunduz artega egon ondoren zeozer elkorra esan zion Macalisteren mutikoari, eta honek arraunak atera eta **abantean** hasi zen. Anton Garikano

2 irud/hed

Zelan pasa behar zait mozkorra hirugarren Voll Damm-a irensten nabilela, eta aurreko ronak oraindik **abantean**? Urtzi Urrutikoeetxea

Denbora estuasuna ez da bereziki gaurko egunen gaitz bat, haurtzaroa utzi eta bizitzan **abantean** sartu diren garai guztietako gizakumeena baizik. Pako Aristi

---

abantxu ik **abantzu**[1], **abantzu**[2].

---

abantzamendu *iz* aurrerapena; hobekuntza.

Ez zuen nehoiz gaurkotasun lasairik jastatu ohean mutu zetzan gizonak: inguruarekiko hiruzpalau elkarrizketaren **abantzamendua** bazeukan beti. Itxaro Borda

Izigarriko **abantzamendua** ekartzen du. Menane Oxandabaratz

---

abantzarazi, abantzaraz(i), abantzarazten du *ad* aurrera eginarazi.

Salbu hara, elkarte sortze hori bazterretik segitu duten askoren arrangura hauxe da, gatu horrek baduela beste buztanik! Iduritzen zaiote elkarte berria, Jean-Jacques Lasserre departamenduburua sustatzaile, egina dela 2x2 errebide handiaren alde, proiektu hori, eztabadabide duguna bulta huntan, **abantzarazteko**. Herria

Belak zentimetro batzuk **abantzarazi** zuen delikatuki basoa; Naiak, erruki sotilaz zerbitzatu zion. Pablo Sastre

---

abantzatu, abantza(tu), abantzatzen du/da *ad* aurreratu; aurrera egin.

Tapaxek kamioia poliki **abantzatu** zuen. Pablo Sastre

Urratsa urratsaren ondotik eginez **abantzatu** behar. Herria

Galkadura ainitz gutien ustean, autoak nehorat ezin **abantzatuz**. Herria

Eta gobernuak hain xuxen 9 miliar euro **abantzatuko** daizkio ondoko egunetan hobeki atera dadin. Herria

Bidean **abantzatzeko** eta aitzina egiteko. Joan Mari Irigoien

Zeren eta oinak lur gainean jartzea baita mundu honetan **abantzatzeko** eta aitzina egiteko modu bakarra. Joan Mari Irigoien

Emekiño **abantzatuz**, "bare korkoilaren urratsean" berek erran dutenaz, denen buru zaluxago halere, orenean hogoi bat kilometra segurik egiteko gisan, joan dira Baionatik Biriatuko mugaraino. Herria

Joanden larunbatean, keinka batez, burutik buru ezarri behar nehorat ezin hein batean **abantzatuz** zauden auto guziak, izanen zen 700 kilometra luzeko soka baten egitekoa! Herria

Gaitzeko lerroa muntatu da Donibane Lohizunetik harat, mugari buruz, bulta batez zortzi kilometro luzeko lerroa, auto guziak kasik jendearen urratsean **abantzatzen**! Herria

---

abantzu[1] *(orobat **abantxu**)* **1** *iz ipar* abantaila.

Esperantzak oro bizirik zeuden lehen denbora erdia bururatzean, Baionak tanto baten **abantzua** atxikitzen zioten Miarritzeko xuri/gorriei. Herria

Irabazle zuraidarrek **abantzua** hartu dute berehala, 19 eta 5. Herria

Hor Ibarrolak **abantzua** hartu zer gerta ere, hamar kintzerena. Herria

Azken honek **abantzua** hartua du errugbi partida ondoko ostatua atxikitzearekin. Herria

Beñat Gimenez nagusitzen da halere 316 bozen **abantzuarekin** (4375 boz % 51,87) Guy Mondorge sozialistaren parean (4059 boz, % 48,12). Herria

Sailkapenean lehen dira lau punturen **abantzuarekin**. Herria

Hastapenean irabazleak aise joan dira 23-8-rainoko **abantzuarekin**. Herria

Saski baloian,tanto xoil baten **abantzuarekin** irabazi dute Baiona/Urketarrek Autun-eko parketean, 71/70. Herria

Emeki emeki abantaila hartu du hunek, joko munttoago batekin, eta ondarreraino atxiki eta **abantzua** emendatu ere. Herria

2 ***abantzu izan*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Beste leku batzuetan, ordea, **abantzu dena** dute egiteke. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
abantzua hartu (4); **tantoren abantzua** (3)

---

abantzu[2] *(orobat **ahantxu** g.er.) adlag ipar* ia.

Sua lotzen zelarik herri batean, etxeak elgarri hain ziren hurbil, hala nola Auritzen, non denak edo **abantxu** denak erretzen baitziren, herri gehienetan bederen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Halere ez dezagun ahantz han nonbait, Kolunbian, emazte bat bahitua dela, Betancourt anderea, mila eta berrogei bat egun etxetik kanpo dela, **abantxu** hiru urte. Herria

Abantxu bi oren iraun du Paristar eta Miarriztarren arteko errugbi finalak. Herria

Astelehen goizean zendu da **abantxu** 90 urtetan, Marie Suhas sortzez Verges, hazpandarra. Herria

Bertze guziak etzanik daude zorrieriak janak, ezin jeikiz, **abantxu** hilak. Michel Oronoz

Gu ere aitzina joan beharrak ginen, **abantxu** egun erdi bat galdurik. Michel Oronoz

Gaixo haurra! Zazpi urte ukaitean, amak 70 **abantxu**. Herria

Nahiz Martiarenak laster aintzinaldea harturik ere, hor zuen bere tema bipila gerezietarrak 15-17, **abantxu** berdintzera zoalarik. Herria

Zaunka elkorra aireratu eta Agustinek arratsaldeko askarian Petarre **abantxu** urkatu zuen. Itxaro Borda

Hainbat inahal beltzeria deabrutzen, kriminalizatzen eta aienatzen, eta alderdi zuria jainkotzen, ustez **abantxu** erdietsia zeukalarik, horra non azaltzen den jendarteari berriz ere atxikia eta itsatsia bizkarroiaren pare, sortlekuan berriz ere kokatua eta laketua. Jose Angel Irigaray

Emaztekia haurdun zegoen bitartean **abantxu** sexuzko harremanik gabe bizitu izan baginen, haurra jaioz geroztik behin betikoa zen baruraldia. Jose Angel Irigaray

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
abantzu bi (6); **abantzu ehun** (3); **abantzu hiru** (3); **abantzu pollita** (3)

---

abanzada *iz* etsaia arretaz behatzeko aurreratzen diren gudarien multzoa, aurreko taldea.

Horrek ez daki zer den plano bat, ezin izan liteke **abanzada** bateko zelataria. Koldo Izagirre

---

abao *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* abaraska, erlauntza.

Berezia da Antoñanako eztia, eta hamaika **abao** daude ikusgai herriaren inguruan. ETC-prentsa

Ugaraxo bihurtu genituen gureak, trumonira lez mehaztu eta maila xeheko **abaoetan** eskegiko genituela eman genien adietan. ETC-prentsa

Euskaraz, beste izen batzuk ere baditu: **abao**, beraska, kofoin, orraze. ETC-entziklopedia

---

abaor ik **ababor**.

---

abar *(ETCn **19.510** agerraldi)* **1** *iz* zuhaitz edo zuhaixka adarra.

Autoaren aurreko kristalean haritzen hosto eta **abarrak** ageri dira islatuak eta txoferraren figura estaltzen dute. Pello Lizarralde

Edo baserri bat gutxienez, leinuaren etorkiaren bermatzaile [...] edo arbola genealogikoa bestela, zuhaitz urtetsu eta sendo baten antzera **abarrak** ugari eta sustraiak luze izango dituena. Xabier Mendiguren Elizegi

Hegoaldera buruz dituen **abarrak** perde pollit batez apaindurik badaude oraino, iparraldeari buruzkoak herdoildurik bezala daude, eihar bidean. Herria

Minutu batzuez, Lucyri begira nagokio, nola ari den soropilean zehar lasterka, txakurrari **abarrak** jaurti eta ekarrarazten. Oskar Arana

Leihoen inguruko eta teilatu-hegalaren azpiko erlaitzek **abarrak** eta loreak zeuzkaten zizelaturik. Jose Morales

Larrazken bukaeran **abarrari** lotu hostoaren antzera ikara zen suprefeta, bonba zuzendua zitzaiola konturatu zenean. Itxaro Borda

Nire mahastia hondamendi bihurtzen dute, nire pikuondoa ezpal; dena karraskatzen eta zuritzen, **abarrak** larrutuz. Elizen arteko biblia

Aitzurka jarraitu zuten, mahastia jorratzen, hostoak bekandatzen eta mihimen multzoak gerrian zintzilik, **abarrak** alanbreari estekatzen. Itxaro Borda

Aldameneko suan zirti-zarta isilean ari dira sasiak eta **abarrak**, eta soinuzko txinpartak ateratzen hasi dira gaueko kilker biribilak. Xabier Mendiguren Elizegi

Egurra, papera eta **abarrak** aurkitu ditut bertan; horietxekin piztu dut sua. Aitor Arana

James George Frazerren *Urrezko **abarra*** eta Montesquieuren *Legeen espirituaz*. Berria - Kultura

Aitak, ardiak laxatu zituen eta lohian txapatxapa ihalozka pasatu ziren, muturrak lurrera, ilatxetan iratze zein ote **abarrak** perlatzen zirela, kakaila pikorren artetik. Itxaro Borda

Dinamita **abarrak** hartu zituen, eta kuxeluz kuxelu bazterrak azterturik, zuloaren tapakia hertsi zuen. Itxaro Borda

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Debozioarena diot, San Joan goizean, ateko eta leihoetako alde batean hantxe iltzatzen zelako zarba bat, beste aldean lizar **abarra** genuela. Pello Zabala

Apezak kutxa benedikatu zuen erramu **abarraz** eta bereterrak intsentsua barreiarazi zuen elizaren barnean, aire tepoa usainduz. Itxaro Borda

Herrialde askotan, gaizkileak zigortzeko ere **urki-abarrak** zituzten eskura. Pello Zabala

Beleek ihes egin zuten kantari eta elurra erori zen **urki abarretatik**, erauntsian bezala. Felipe Juaristi

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sahatsarekin eta basa-lizarrarekin batera, jainkoentzako zeremonietan estimatuak izaten ziren adar-**abarrok**. Pello Zabala

4 ***eta abar*** *(orobat **etabar** g.er.)*

Eta hola etxe, borda, pentze **eta abar**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Irudi batean giza gorputzaren forma ezagutu ahal izateko, esate baterako, ez da aski izango aurpegi bat, lepoa, enborra, besoak **eta abar** ezagutzea. Josu Zabaleta

Egitura politikoa, administrazioa, hezkuntza sistema, baita ere bideak, portuak **eta abar** garatuko dituzte. Ramuntxo Etxeberri

Egun hortan plazan, dohainik zernahi joko: pilota, dantza eder, **eta abar** ikusiko ditugu, hamarretako meza ospetsuaren ondotik. Herria

Gramatika bat sortzeko, intuizioa, asmaketa, edonolako aztarna metodologikoak, aurreko esperientziak, **eta abar**, erabil ditzakegu. Itziar Laka

Zentzu zabalagoan, koadratzeak, irudikatua balioetsiz edo gutxietsiz, arreta lehen planoan erakutsiari jarraraziz, **eta abar**, irudikatzen denari buruzko iritzi bat islatzea eragiten duen guztiari ere badagokiola, orobat. Josu Zabaleta

Pribazitatea, kontsumitzaileen babesa, jabego intelektuala, egin daitezkeen kontratuak, **eta abar**, horiek guztiek nolabaiteko araudia behar dute etorkizunean, batez ere sareko merkataritza indartu egiten baldin bada. Pello Salaburu

Eguna ere zatitzen dugu beste unitate batzuetan, eta hauek beste txikiago batzuetan, **eta abar**, nahi duguneraino joanez. Pello Salaburu

Zein zutabetan egon, haren arabera adierazten zen zenbat unitatez -hamarrekoz, ehunekoz, **eta abar** - osatuta zegoen zenbakia. Jon Muñoz

Batzuk, egoera orokorraz, gizartearen bilakabideaz, politika aldatu beharraz, **eta abar**. Juan Garzia

Bigarrenik, gainera, zehazki hitz eginez, a priori emandako ezein adigai ezin da definitu, adibidez, substantzia, kausa, eskubidea, zuzentasuna, **eta abar**. Ibon Uribarri

Chomskyren ikuspegitik, bide asko erabil daitezke gramatikara iristeko, hala nola "intuizioa, asmaketa, edonolako aztarna metodologikoak, aurreko esperientziak **eta abar**". Itziar Laka

Aitak zuen enpresak, Amsterdameko ubide inguruetako etxe askok bezala, ubideetara ematen zuen etxeaz gainera -han zeuden bulegoak **eta abar**-, bazuen atze aldera ematen zuen etxe bat. Josu Zabaleta

Azken finean, irudiaren osagai jakin bakoitzari dagokionez, kognizioaren modu oso orokorrek nola jokatzen duten esplikatzean datza psikologia kognitiboa (inferentzia, arazoen ebazpena, **eta abar**). Josu Zabaleta

Atzerriko hedatze bide zuzenek lankidetza modu berriei lekua utzi diete, eta ondorioz, bazkide eta hitzarmen formulen aukeraketa enpresaren nazioarteko estrategian ardatz bilakatu da (frankiziak eta lizentziak, azpikontratazioak, joint-venture direlakoak, **eta abar**). Iñaki Heras

Horren beldur nintzen, nonbait, zeren ezagun batzuk aitari esaten zioten alabak berarekin lan egin zezakeela **eta abar**. Ana Urkiza

Baina noiz, nola, **eta abar**, benetan ez zekiat. Txillardegi

Fidatu egin zen jendearen esanez, Ramires sendoa da, Ramires indartsua da, Ramiresek baditu kapitala eta kreditua, **eta abar**. Bego Montorio

Esan, kontatu **eta abar** egiten baduzu, abenturarik gabe geldi zaitezke. Ana Urkiza

Garai batean izan zen hazkunde ekonomiko jarrai eta egonkorrari esker murriztu zirela desberdintasunak, **eta abar**, **eta abar**. Iñaki Heras

Produktibitatearen inguruan erretorika ofizialak dioena ezaguna da oso: "areagotu egin behar dela", era berean, lehiakortasuna areagotzeko "ezinbestekoa" dela, **eta abar**, **eta abar**. Iñaki Heras

"Hara, Perrette Liard deritzan emakume gazte batekin bizi naiz; hogei urte zituenean, estolda-zulo batera erori zen, **eta abar eta abar**; orduan, ikertzen hastea erabaki nuen, zeren eta bikiak...". Jon Muñoz

Buruz esango nizkizuke bederatzi musak eta Zeusen zazpi maitaleak; Herkulesen emazteak, **eta abar eta abar**, buruz denak. egundoko putakeria egina ziotela, diru mordoa galdua zuela harrezkero, ezin zitzaiola hari horrelakorik egin, **eta abar**, **eta abar**, **eta abar**. Josu Zabaleta

Txukundadearena konpontzeko beste saio guztiek, txandak antolatzea **eta abar**, porrot egiten zuten. Iñaki Iñurrieta

4a (deklinazio atzizkiekin)

Behatz txikia eta behatz lodia daude multzo batean, eta besteak (hatz erakuslea **eta abarrak**) beste batean. Iñaki Segurola

Marketina ez al da ba izango, pertsuasioaren eta informazioaren distortsioaren bidez (labelak, zertifikatuak, cause marketing kanpainak, **eta abarrek** sorturikoak), kontsumitzaileari indarra kentzeko beste estrategia bat? Iñaki Heras

Zer nahi dute komite horretako kazetari, kritiko, profesore **eta abarrek**? Bernardo Atxaga

Eleberriari atxiki diezaiokeguna, artearen edozein azpikontzepturi ere atxiki diezaiokegu: tragediari, komediari, operari, **eta abarri**. Askoren artean

Pobreziari, goseari, ingurumenaren degradazioari **eta abarri** amaiera ematea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Lehen adieran materia jariakorraren izaeraz (Natur) hitz egiten da, suaz, **eta abarrez**, eta hitza adiective soilik erabiltzen da; aitzitik, izadiko (Natur) gauzez hitz egiten denean, orduan osoki egonkor bat dugu gogoan. Ibon Uribarri

Hamarka paper-zorro, oharrez, txostenez, kalkuluz **eta abarrez** beteak. Jon Muñoz

Gene berak edukiagatik hain egitura desberdin bilakatzen baitira nola nerbio, hezur, gihar, heste **eta abarren** zelulak. Bada jakintza bat, hastapen-hastapenetan dagoena, ordea, eta itxuraz oraindik aski lausoa dena, koloreen, forma batzuen **eta abarren** jarduerari buruzkoa, psikologia esperimentalak, soilak nahiz aplikatuak, aspaldi samarretik landu duena. Juan Garzia

Ez dakit zenbat mezulari eta mezuren (fisikazko, biologiazko, psikologiazko **eta abarren**) bitartez. Jenaro Garate

Informazioa prozesatzen eta banatzen dutenen bizi-modua aldatu dute (idazle, dokumentalista, liburuzain, irakasle, diseinatzaile, zuzendari **eta abarrena**, alegia). Iñaki Heras

Hanburgeseria bateko Romeo talde bati Hawthorne, Whitman, Poe **eta abarrenganako** errespetua zer den irakastea ez da batere erraza! Xabier Paya

Bohr **eta abarrena** "interpretazio ortodoxoa" da teoria kuantikoan. Iñaki Segurola

Zelula-desberdintzea ikertu nahi bazen, zelula desberdinduz osaturiko organismoak hartu behar ziren aztergai, beren gihar, nerbio, larru, giltzurrun **eta abarrekin**. Juan Garzia

Bultzatzaileak filosofia alemaniarraren periferian dauden pentsalariak ditugu, hots, orientabide kantiar, fenomenologiko, existentzial **eta abarretik** kanpo daudenak. Askoren artean

Han Tigris ibia hartu eta Ubulla aldera, gero Omán, Sind, Txina **eta abarrera** belauntzitan joateko.Han Tigris ibia hartu eta Ubulla aldera, gero Omán, Sind, Txina **eta abarrera** belauntzitan joateko. Patziku Perurena

Beharbada 17 urte idor hauetan dena ahaztu edo erdi-ezabatu zaidalako, Valcornejara **eta abarretara** joan aurrekoak baino kilikagarriago atxeman ditut. Txillardegi

Hala, hainbat organismo, zelula **eta abarretara** egokitzeko gai diren birus aldaerak sortzen dira. Berria - Gaiak

Baina *he is very drunk* "oso edanda dago" eta *he seems drunk* "edanda dirudi" bezalako perpausek erakusten dutenez, bada adjektiboa den *drunk* hitza ere, (72) zerrendan agertu beharrekoa, *old* "zahar", *interesting* "interesgarri" **eta abarrekin** batera (ikus 7.3.), eta adjektibo hau ere *endrink* elkarketatik sortzen da. Itziar Laka

Gero eta nabarmenago dira, bestalde, elektronika, informatika, ingeniaritza **eta abarrekiko** zubi beharrak. Lourdes Oñederra

Agudo jotzen zuen ganbarako eskailera buruan esekita gordetzen zuen San Joan egunean elizara emandako sorta bedeinkatu hartara, lorez, barazki-landarez **eta abarrekikoz** osatutako hartatik eskukadatxo bat apartatzera. Pello Zabala

Mapa nagusiak, arte lanak, zoologia, botanika **eta abarretako** marrazki eta argazkiak". Bernardo Atxaga

Arlo desberdinetako (kirol, festa, feria, ibilaldi, omenaldi **eta abarreko**) diru publikoak monopolizaturik dauzkatela. Patziku Perurena

Eszitazio sexuala hainbat estimulurengatik gerta daiteke, eta estimulu horiek izan daitezke ukimen, ikusmen, irudimen, usaimen **eta abarrekoak**, eta zenbait aldaketa eragiten dituzte. Luis Elberdin

Funtsean, klon bat da, hots, bilduma bat, hainbat motatako zelulena: gihar, nerbio, guruin **eta abarretakoak**; guztiak ere abiaburuko zelula batek berak -arrautza ernalduak- sortuak. Juan Garzia

Berezitasunek, anizkotasunak, enpresen beharretarako egokitzapenak, **eta abarrekoek**, leku txikia izan beharko lukete, eta betiere, ikasketen amaierako gaietan eta gaien alde praktikoan bakarrik irakatsi beharko lirateke. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Allah, *iz* Mahomatarren Izaki Gorena, kristauen, juduen **eta abarrenarekin** nahastu behar ez dena. Xabier Olarra

Harremanak izan zituen Marie d'Agoult kondesarekin, Carolina Sayn Wittgenstein-ekin, Lola Montes dantzariarekin, [...], Olga Meyendroff baronesarekin, Lilla ez-dakit-zer-gehiago antzerki aktoresarekin **eta abar eta abarrekin**: ezin konta ahala. Josu Zabaleta

Uraren festa den Yosemite parkean sartu garenean, ibaiak, ur jauziak, aintzirak **eta abarren abarra** ikustean. Patxi Zubizarreta

4b (izenondoekin)

Bai, gaur egungo aingeruek masturbazioa, sarketa, kitzikatzea **eta abar** garbi horiek oro txit ongi ikasiak dauzkate. Iñaki Segurola

Exekutibo eta kudeatzaile egin dira, eta enpresa, aseguru, banku, poltsa, higiezin, aholkularitza **eta abar** zikin horietan erori dira. Iñaki Segurola

Gerora dendak, gasolindegiak, atsoen poltsak, kutxazainak **eta abar** luzea etorri ziren. Sonia Gonzalez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abar aipatu (5); **abar aipatzen** (4); **abar bat** (3); **abar batzuk** (4); **abar biltzen** (4); **abar ere** (7); **abar eta** (43); **abar eta abar** (35); **abar ez** (4); **abar luze** (8); **abar luze bat** (7); **abar luzea** (8); **abar sortu** (3)

arazoak eta abar (3); **bat eta abar** (7); **bereziak eta abar** (5); **buruz eta abar** (4); **da eta abar** (5); **egiten eta abar** (3); **elkarrizketa eta abar** (3); **eta abar** (1583); **eta abar aipatu** (5); **eta abar aipatzen** (4); **eta abar biltzen** (4); **eta abar ere** (7); **eta abar eta** (39); **eta abar ez** (4); **eta abar luze** (8); **eta abar luzea** (6); **eta abar sortu** (3); **izana eta abar** (3); **jokoak eta abar** (4); **lanak eta abar** (7); **n eta abar** (3); **zen eta abar** (3)

abaraska *(orobat **aberaska** g.er.)* **1** *iz* erleek, eztia gordetzeko, erlauntzaren barnean argizariz prestatzen dituzten hexagono formako zulotxoen multzoa. ik **orraze**.

Sagarrondo loreen mira zuten erleek **abaraska** egin omen zuten Adrianaren ahoan eta ezti gozoa atera, ezti musikaduna, ezti sagar-zaporea. Felipe Juaristi

Hezur handi bat luzetara ebakitzen badugu zerra batekin, **abaraska** edo belaki baten moduko egitura ikusiko dugu begi hutsez ere leku batzuetan. Irene Aldasoro

Erleek **abaraskaren** gelatxoak eraikitzen ari ziren trebezia harrigarriz ontzitxoan. Askoren artean

Teilatua ia jasota zegoen liztorren **abarasken** eraginez. Josu Zabaleta

Abarasketan sakabanaturiko erle maratzen antza zuten funtzionario haiek, baldin eta abaraskak bulegoetako zereginekin alderatzerik badago-. Jose Morales

Abaraskako zulotxo batean oka egin, eta jarri dio argizarizko estalkia, mindu ez dadin. Anjel Lertxundi

Banator neure baratzera, ene arreba, ene emaztegaia, neure mirra eta lurrinak biltzera, neure **abaraskako** eztia jatera, neure ardo eta esnea edatera. Elizen arteko biblia

Hurbildu naiz **abaraska** oparoenera, eta begira-begira gelditu naiz erleen atzera-aurrerei. Anjel Lertxundi

Horietatik bi ditugu ongien aztertuak: ugaztunen dilista-tankerako begia, gurea, eta intsektuen **abaraska**-tankerako begia, euliarena. Juan Garzia

Erle-**abaraskak** eta inurri-koloniak eta hostoen ehun higikorra atomo-mordokatzeen mordokatzea begitandu zitzaizkion. Juan Garzia

Jesus izena ezti-**abaraska** bezain gozoa gertatzen zitzaion ahoan. Askoren artean

Hitz atseginak, ezti-**abaraska**: ahorako goxo, gorputzerako osasungarri. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Ezkondu berriak ginen, amodioaren **abaraska** gozoan genbiltzan, eta halaxe egin genituen lehen hamar hilabeteak. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abaraska tankerako** (3); **ezti abaraska** (3)

---

abaritz *iz* artearen antzeko zuhaitz edo zuhaixka *(Quercus coccifera).*

Eskasagoa deneko lurralde zeltiarretan, badirudi **abaritza** edo karraska, artearen hain antzekoa den hori zerabiltela haritz-artearekin borroka egiteko orduan. Pello Zabala

Bibliako itzulpenetan, *haritza* esateko, batzuetan, *ahuntzadar* edo *terebinto* itzultzen du, Mambreko Artadikoan bezala; eta beste batzuetan, **abaritza**, *txaparro* edo *karraska,* izen horiek denak baititzute zuhaitz hain garaiak ez diren hauek. Pello Zabala

---

abarizia *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi) iz* zekenkeria, zikoizkeria.

Ez naiz aditua eskribau kontu eta **abarizia** industrailetan. ETC-literatura, saiakera

Abariziaren kontra, Liberaltasuna. ETC-literatura, saiakera

Damu zaio, eta gogotik madarikatu du bere **abarizia** Pedro Intxauspek, Norvegiako soldaduek harrapatu zituzten egunetik. ETC-literatura, saiakera

Bigarren bekatua Lukurreria edo **Abarizia** da. ETC-literatura, saiakera

Pobrezia eta langabezia azpiegitura erraldoiekin konpondu ditugu (batzuen pobrezia eta langabezia eta besteen **abarizia**... denak batera konponduta). ETC-prentsa

Abarizia ikusten zuen non-nahi. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ez dagokio zahartasunari maitakeria, eta ez eskuarki gaztetasunari **abarizia**. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

abarizios *izond* zekena, zikoitza, diruzalea.

Kanpotar bat atetik sartu orduko egin ohi dute irribarre hori lukurreru zeken **abarizios** berriek. Lutxo Egia

Ez al zuen Jainkoak berak ere erran ezen ez zituela aberats **abariziosak** maite? Joan Mari Irigoien

Zuberoako kalvindar harena, Mathalasen denboran ezagutu zenuena, zeinaz erran baitzenidan ezen, ministroa ez ezik, prestamista ere zela, hain **abariziosa** eta hain eskulaburra, non koberatzen baitzien bere bezeroei, interesetan, %10a, Kalvinek ezarri zuen %5eko mugaren gainetik. Baldin egia bada, anitz jakintsuk idurikatzen duen bezala, ezen deabruak infernuan **abariziosak abariziosekin** bereizi eta partzelatzen dituela, ohoinak ohoinekin, arnegariak arnegariekin, eta, finean, kideak kideekin eta suertekoekin, [...]. Joan Mari Irigoien

---

abarizti *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi) iz* abaritz oihana, abaritz basoa.

Soinu astuna, metalikoa, zorrotza zen, **abariztian** barna milietan eta milietan zabaltzen zena. ETC-literatura, saiakera

Ondorioz, Euskal Herriko kostalde osoan ez diren komunitateak aurkitzen ditugu bertan: **abarizti** (penintsulako iparrekoena) eta artadi txikiak, mediterraneoko soro muxarra (ugaztunen artean) eta eskinko hiruhatza (narrastien artean) dira aipagarrienak. ETC-prentsa

Abariztiak desagertu diren inguruetan eta kareharrizko muinoetan ordea, erromero sailak, ezkai-sailak eta ur gutxi dagoen lekuetan agertzen diren larre xerofiloak garatzen dira. ETC-prentsa

Honek guztiak, Euskal Herrian baso mota hagitz desberdinak topatzea eragiten du, Arabako artadi eta **abarizti** lehorrenetatik Gipuzkoako harizti eta pagadi hezeenetara. ETC-prentsa

Abariztiak dira erretako landare gehienak (%65). ETC-prentsa

- **Abarizti** eta erromero-sailek eraikitzen dituzte sastrakadi esanguratsuenak, eta larre xerofiloak hazten dira horien ordez, gizakiaren eskuak eragindako ETC-zientzia, zuzenbidea

Leku horietan pinudiak, **abariztiak** edo askoz ere baldintza gogorragoak jasan ditzaketen beste hainbat komunitate daude. ETC-entziklopedia

---

abarka *(ETCn **395** agerraldi; orobat **albarka** g.er.) iz* Euskal Herrian erabili ohi den larruzko edo gomazko oinetakoa, batez ere oinaren azpialdea babesten duena, soka baten bidez zangoaren behealdean lotzen dena.

Gehienek bertako nekazariak ematen zuten; ia denek janzki beltza zeramaten, txapel urdin txikia eta batzuek, boten ordez, **abarkak** eta hankak biltzen zizkieten ahari-larruak zeramatzaten. Koro Navarro

Haren muturrezur lakatza, haren kalpar luze zarpaila, haren tunika beltza, haren **abarka** eta belaunetarainoko bartan larruzkoak, eta haren ibilera azkarra nork ahaztu! jantzi zenbait eskuratu zizkien: galtzoin, atorra, galtzerdi eta **abarkak**. Patziku Perurena

Belarrarekin ontziak garbitzen, ama; **abarkak** egiten, aita. Arantxa Iturbe

Abarkak lokatzetan zikindu gabe. Berria - Euskal Herria

Abarkak erantzi eta gero, supazter inguruan bero-bero zeuden espartinak, orpoaldea txapalik zutela oinetan sartzean ere. Pello Zabala

Basajaun haien terreno eta gari piletan salto eginda ekarri omen zuen garia bere **abarketan**, gero hemen ereiteko eta lantzeko. Pello Zabala

Txapela du buruan; liburu bat eskuetan; **abarkak** oinetan. Berria - Kultura

Askok, **abarkak** eta xingolak aspaldiko partez soinean berriz janzteko parada paregabea ukanen dute.Joanes txapela buruan zetorren, lehenagoko zamar amironatua eta **abarka** lohitsuak soinean, eskuz bildu caporal tabakoz hantu zigarroa aho zokoan zintzilik, kea kanporatzeko noiztenka ahoa irekitzen zuela. Herria

Lotura liluragarritzat jo zitezkeen elementuak euskal ipuinetan biltzen hasi omen zen irakasle hura: odola zerien arbolak, txori bihurtzen ziren harriak, labetik atera berria

bezain ogi beroa ematen zuten landareak, **abarka** hegalariak, gorotz bihurtzen zen urrea... Anjel Lertxundi

Autoen gurpil azalekin **abarkak** egiten hasi zen. Iñigo Aranbarri

Oinetan artilezko galtzerdiak eta goma beltzezko **abarkak** , Azpeitian egiten dituzten horietakoak. Hasier Etxeberria

Edozein aitonen ibilerak aditu ordukotz, sotoko ganbelapean aurkitu nuen **abarka** mutur hartara joaten zait gogoa. Patziku Perurena

Abarka -sokak askatu, soka mahaiaren hankari lotu, jarri **abarka** belaunean, eta deitu omen zion esanez: [...]. Pako Aristi

Ez zuela **abarka** pare hura besterik izandu bere bizi guzian, eta hura soldaduskatik etxerakoan, osaba Joakinek Irurtzungo ferian erosia; haren besoetakoa baitzen. Patziku Perurena

Menditarrak versus kaletarrak, **abarkak** versus abarketak, euskara versus erdara, ohitura onak versus zabarkeria, fedea versus Jaungoikoarengandik urrutiratzen ari den mundua... Anjel Lertxundi

· -Bai politak zure oinak **abarka** horiekin, errege-alaba! Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
abarka mutur (3)

---

abarkadun 1 *izond/iz* abarkak erabiltzen dituena, baserritarra.

-Besarkada amultsu batean biltzen ditut neure bular minduan atorrabakoak eta **abarkadunak** . Koldo Izagirre

Aipagarria da, Mogelek zioena zeharo asimilatua baitu, Domingo Agirrek *Garoa*n, **abarkadunen** eleberritzat har daitekeen liburuan, **"abarkadunei"** buruz dioena: Ez zuen deus ikustekorik oraingo laborari bizardun eta **abarkadunarekin** . Anjel Lertxundi

Esan nizuna: ikusi zeinen beldurtiak diren **abarkadun** txepel hauek... Iban Zaldua

Handik hamabi bat urtera, nekez ezagutuko genuke liburuaren azaleko Xabiertxo **abarkaduna** inspiratu zuen Xabier haragizkoa. Anjel Lertxundi

2 *infantzoi abarkadun* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Infantzoi abarkadunek , horiek gobernatzen dute auzuneetako aberastasuna. ETC-literatura, saiakera

---

abarkagile *iz* abarkak egiten dituen pertsona.

Azpeitiko **abarkagileek** ez dute ezagutzen, antza, Pariseko asfaltuaren berotasuna udako eguzkiak kiskaltzen duenean. Hasier Etxeberria

---

abarkagintza *iz* abarkagilearen lanbidea.

Bestelako ogibide batzuk ere badute tokia solairu horretan: artilearen prestakuntza, joskintza, erramentaritza, zapatagintza, espartingintza eta **abarkagintza** , esaterako. Berria - Kultura

---

abarketa *iz* espartina.

Etxean ikusia naiz ama **abarketa** eginean, zientoka. Patziku Perurena

---

abarketagile *iz* abarketak egiten dituen pertsona.

Orain badakit Andres Untzainen aita lanbidez **abarketagile** edo espartingilea izan zena eta, enborretik ezpala, abertzale sutsua izan zena ere. Edorta Jimenez

---

abarketari *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* abarkak egiten dituen pertsona.

Hatzetan oratutako zigarroa xurga eta xurga ari zela, beste bertsio bat eman zuen **abarketariak** . ETC-literatura, saiakera

---

abarketatxo *iz adkor* abarka txikia.

Dantzarako **abarketatxoak** lotu ditu gero. Anjel Lertxundi

---

abaro *(ETCn **1.063** agerraldi)* 1 *iz* babesgunea.

Basapiztiek haren itzalean egiten zuten **abaro** eta hegaztiek haren adarretan habia. Elizen arteko biblia

Aldian behin bide ertzean edo arboladi txikien **abaroan** ikusten diren etxeengatik ez balitz, bidaiari arrotzak pentsatuko luke landotan ez dela inor bizi. Anjel Lertxundi

Esadazu, ene bihotzeko kuttuna, non duzun larratzen artaldea, non **abaroan** uzten eguerdian. Elizen arteko biblia

Vienako estiloan jaso zituzten eraikuntza handietan denbora gelditua dago, Triesteren garai historiko aldekoenen haizearen **abarora** . Burua haren altzoaren **abaroan** atsedentzeko zorian. Anjel Lertxundi

Ez ginen kostako **abaroen** babesetik inoiz lar aldentzen, gure borondatez behintzat. Edorta Jimenez

Aingura Tajo ibietan sakon sarturik, Ánimas ontzia hantxe lotu zen, gabizainaren premiarik gabe, gauaren **abaroan** . Edorta Jimenez

Gustua ematen du ere une honetan atea zabaldu eta lipar batez barrura begira, tabernak **abaro** ona eskaintzen ahal dion aztertuz bezala, gelditu den neskak. Pako Aristi

Coruñako portua zein leku babestuan eta aterpetuan zegoen, eta ontzientzat hura zein **abaro** ederra zen pentsatu nuen. Gure portu gehienek euren neguko babes eta **abaro** lekuak erreka eta ibaietan atondurik dituzte. Edorta Jimenez

2 *abaro egin*

Haren hostoak ederrak ziren eta sorkari guztiak asetzeko adina fruitu zuen. Basapiztiek **abaro egiten** zuten haren itzalean eta hegaztiek habia adarretan. Elizen arteko biblia

3 *abaroan egon*

Ospitalean, goizegi munduratutako jaioberrien kutxa metalikoetan, **abaroan zegoela** esaten zuten gurasoek, nahiz kableek gorputz osoa marraztu. Alberto Barandiaren

Ardiak **abaroan zeuden** eguzki galdatik ihesi eta gu ere zelai ertzeko zuhaitzen gerizpean etzan ginen biluzik. Aitor Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
baten abaroan (6)

---

abarogabetza *iz* abararik gabeko egoera.

Abarogabetza gorri horrek egia da problema askorekin konfrontatzen gaituela; eta problema horien birpasan datza funtsean Straussen kritika Max Weber-i. Joxe Azurmendi

---

abarotsu *izond* babes ugaria eskaintzen duena.

Esana dut beste batean, nola santutegi oparo eta **abarotsua** bizi zuen kristau herriak sasoi batean, azken Kontzilioak entresaka eta inausketa kupidagabea egin zuen arte. Pello Zabala

---

abarotu, abaro(tu), abarotzen da *ad* abaroa hartu.

Asteartean, azken emaitzen berri izan ez, eta zuhurtzian **abarotzea** erabaki zuen Berria-k: "Azken unera arte lehia estua izan da Italiako hauteskundeetan". Iñigo Aranbarri

---

abarrakitu, abarrakitzen da/du *ad* suntsitu, desegin. ik **abarrikatu**.

Arrazoimen idealistaren paradigma Nietzscherekin **abarrakituko** da. Askoren artean

Aldian behin ikusten dituzu emakume batzuk ikusi hutsak desiraz **abarrakitzen** zaituenak. Josu Zabaleta

Baina nik bizikletan segitzen nuen, aireplano **abarrakitu** hura ikusi nahi nuen, ez nuen jasaten beti zer harrapatuko dabilen jendea; ni ibiliko nauk pieza eta trasteak biltzen edo erauzten! Fernando Rey

Frantziak inurritegi **abarrakitu** baten nahasmendu narrasa erakusten duenean? Josu Zabaleta

Bigarren karlistada galduaren ondoko euskal gizarte **abarrakituan**. Joxe Azurmendi

---

abarrakitzaile *izond* abarrakitzen duena.

Begirune handiz hartu nuen liburu hura, eta astiro begiratu nituen marra haiek, niretzat ulertezinak, baina lur honetan izan den amets **abarrakitzailerik** handienaren pentsamendu hilezkorraren erakusgarri zirenak. Josu Zabaleta

---

abarreria *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* **1** *iz* eroritako zuhaitz abarren multzoa.

Aurre aldean, burdin bidea ezin diot ikus, zur zamak itzaltzen duelakotz, sahets aldeak ere gutti, asko zuhaizka eta **abarrerien** artetik. ETC-literatura, saiakera

Entzun ere behi adar haundi horren sudur ziztuak; bizkar gainera eroriak zitzaizkion **abarreria** horren azpitik. ETC-literatura, saiakera

2 irud/hed

Hitz horien helburua -diote- ez da haren **abarreria**, haren enborra baizik, bostehun urteko ibilaldia daukana. ETC-literatura, saiakera

Erraza zen pronostikoa, beraz, eta bai gertatu ere: **abarreria** guztia soildu ondoren, funtsezko bi gerriak (dirutzaren kopuruak eta Europan geure burua babestu ahal izateko eskumena) geratzen dira erabakitzeke. ETC-prentsa

---

abarrikatu, abarrikatzen da/du *ad* suntsitu, desegin. ik **abarrakitu**.

Ene berrogoitamarretako gaztetarzunean **abarrikaturik** mortalki kolpatu nauena telebista izan da. Jose Angel Irigaray

Auto **abarrikatu** baten pusken artetik agertzen diren soin-adar zatikatuak, bide bazterretako erretenean. Aingeru Epaltza

Erizaina, komunist **abarrikatua**, set eginik uzten zuen. Marzel Etxehandi

---

abarroska *adlag* abarrots eginez.

Guregandik metro gutira, ostatu barnera sartu nahian zebilena **abarroska** eta ukaldika lotu zitzaion ate itxiari. Aingeru Epaltza

---

abarrosto *iz* abarreko ostoa.

Askok jantziak zabaltzen zituzten bidean; beste batzuek, berriz, bazterretan bildutako **abarrostoak**. Elizen arteko biblia

---

abarrots *iz* harrabotsa.

Kaletik taxien **abarrotsa** eta tranbien kirrinka zetozen. Lopez de Arana

"Lurraldetasunak eguneroko lan politikoa eskatzen du, ez bakarrik **abarrotsa** eta aldarrikapen arranditsuak", adierazi zuen Patxi Zabaletak hitzaldian. Berria - Euskal Herria

Segidan, hotsak eta **abarrotsak** entzun ziren ostatu barrenean. Joan Mari Irigoien

Ur-jauzi burrunbatsuaren **abarrotsak** berriz bete-betean hartu ninduen, gorgarria zen. Jon Maia

-Niri berdin zait, kontua jatea da -esan zuen mutil juduak, plateren **abarrotsari** eta sutegiko zalapartari zein borborrari bere ahotsa gailenaraziz. Lopez de Arana

Burua, ordea, ez zuen argi, eta pubeko argitasun eta **abarrotsera** joaten zitzaion gogoa.Sehiek obeditu zidaten: baina **abarrotsa** handia zen haien artean; haserre bizian ziren norbait ausartu izanaz beren etxekoandre bertutetsuari makurrik egitera. horrek aparta beza gugandik urrun patu gidaria eta errealitateak barik arrazoiak berak konbentzi zaitzala dena bentzuturik honda daitekeela, **abarrots** lazgarrian. Irene Aldasoro

Ezproi- **abarrots** artean alde egiten zuten urratsen kraskatekoa entzun zen. Juan Garzia

Bat-bateko isiltasunak **abarrots** egin zuen Ximurraren "larrutegian". Aingeru Epaltza

---

abartegi *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* sutarako abarrak gordetzeko lekua. ik **egurtegi**.

Bere zakua alor buruan zuen, sasi-**abartegi** baten itzalean eta ur untzia ondoko iturri ixtil batean murgildua. ETC-literatura, saiakera

---

abartsu *izond* abar asko duena.

Ahoa ongi armatua zuen, bestalde, jan eta hitz batera egiten zituen bakoitzean hortz-haginek baso **abartsu** batean galdutako harri koskorrak baitziruditen. Joan Mari Irigoien

Munduko basorik **abartsuenetan** ezkutatzen den orkidearik ederrena. Joan Mari Irigoien

Mahatsondo egin zen, aihenak bota zituen eta **abartsu** egin. Ikarren askazi ziren, zeren eta Azpilkuetako dorrearen ondo **abartsutik** baitzetozen biak. Elizen arteko biblia

Ez gara nominalizatze interesgarri eta **abartsu** hauen egituran barrena abiatuko. Itziar Laka

---

abartu, abar(tu), abartzen. da/du *ad* zuhaitz edo kideko bati abarrak ernatu.

Ezein erabaki ez da amaierakoa, denak **abartzen** dira bestetan. Juan Garzia

---

abartxo *iz* abar txikia.

Senpereko Hatsa elkarteak eta Maiatz aldizkariak "Poesia **abartxoetan**" izeneko olerkiaren asteburua antolatzen dute. Herria

---

abasitar *izond/iz* Abu-l-Abass-en familiakoa; haren familiak sorturiko dinastiari dagokiona.

Fededunen Komendadorearen hiriburua mendean hartu izanak **abasitarren** kalifaldiaren amaiera ekarri zuen, bostehun urtez iraun ondoren. Jon Muñoz

---

abasto[1] *iz* bizigaien hornidura; bizigaiez hornitzea.

Abasto merkatura ere ez naiz joango, Simagora joatea hobe, oraindik ez nago jende ezaguna ikusteko prest. Sonia Gonzalez

Ama anarkista zen eta **abasto** lanetan aritzen zen elikagaiak banatzen, Jaizkibelgo trintxeretan eta, San Markosen eta. Jokin Urain

---

abasto[2] *adlag* ugari.

Bigarren ilaran gelditu ginen berriz, espaloi ondoan aparkatzeko leku aski eta **abasto** izan arren. Aingeru Epaltza

Bederatziak hogeita bortz guti; denbora aski eta **abasto** lan bururatu gabeari akabaila emateko. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aski eta abasto** (7); **eta abasto** (8)

---

abat *iz* abadea, monasterio bateko burua. ik **abade 3**.

Birila izeneko Leireko **abat** hark edo bertze anitz lurraldetako monjeek bezala. Joan Mari Irigoien

Ahozko otoitzaz gorago aipatuari, eratxiki otoitzeko asko emendakin, Albi hiriko santa Klaran **abat**-andre den Ana Ezpeleta nafarrari eskainia. Piarres Xarriton

---

abata **1** *iz* ehiztariek zuhaitz gainean usoak zelatatzeko egiten duten behatokia.

Ohartu ginen han hemenka otartearen erdian bazirela **abata** zenbait segur zantinelez ongi hornituak. Herria

2 engainuaren bidez erakartzen duen gauza. ik **apeu**.

Uretatik ateratzen zen guztietan, hain gogor eragiten zion buruari non **abata** karraskaka entzuten baitzen. Koro Navarro

---

abatar *(corpusean ez dago; ETCn **36** agerraldi) iz* erabiltzailea identifikatzeko erabiltzen den grafikoa; ordezko nortasun birtuala.

Zure aurpegia aldatzea baino errazagoa da zure **abatarra** aldatzea. ETC-prentsa

Horien atzetik azaldu ziren Eguzki konpartsako kideak, **abatar** berdez jantzita. ETC-prentsa

Horren ordez, sare sozialetako **abatarrak** zelatatzen eman dut denbora, eta lortu dut jakitea gehien-gehienak zein futbol taldetakoak diren. ETC-prentsa

Polemika izan da hauteskunde kanpainan, emakume hautagaien aurpegiak agertzen ziren afixak **abatarren** -ordezko grafikoen- bidez ordezkatu dituztelako. ETC-prentsa

Insertoak grabatu, 6. sekuentzirako. Lander Facebooken konektatuta dago **abatarrarekin**. ETC-telebista

Normalenek, berriz, besteenganako errezeloa izan zuten argudio: ziurrenera milioika jendetxar daudela **abatar** xaloz mozorrotuta fede onekoei labana noiz sartuko zain. ETC-prentsa

Neska bakoitzari **abatar** bat egokitu zitzaion, hau da, neskaren ordez mutilarekin zita izango zuen beste pertsona bat. ETC-prentsa

Izenpetzaile bakoitzari **abatar** baten sortzea proposatzen die. ETC-prentsa

Ikasjai app-a sortu dute hartarako, eta, **abatar** moduko jokalari bihurtuta, herriko kulturari lotutako misioak gainditu beharko ditu jokalariak. ETC-prentsa

Hortaz, ohiko **abatarra** gizakia da, bai emakume bai gizonen formak har ditzakeena eta amaigabea den aukerako ezaugarri sorta duena. ETC-entziklopedia

---

abatari *iz* uso ehizan, usoen etorreraren berri ematen duen gaztetxoa.

Kanpotik etorri ihiztari aberatsen gida edo laguntzaile (**abatari**) bezala beren bizia irabazten edo errexten zuten beste ainitzek. Herria

Saiberriko **abatariak**, ahal guziak egiten ditu igorri nahiz uso pila, trapariaren menerat; orduan bai da egiazko loria sare azpian direlarik bilduak? Herria

---

abatari *iz* uso ehizan, usoen etorreraren berri ematen duen gaztetxoa.

Kanpotik etorri ihiztari aberatsen gida edo laguntzaile (**abatari**) bezala beren bizia irabazten edo errexten zuten beste ainitzek. Herria

Saiberriko **abatariak**, ahal guziak egiten ditu igorri nahiz uso pila, trapariaren menerat; orduan bai da egiazko loria sare azpian direlarik bilduak? Herria

---

abate ik **abade**.

abatetxe ik **abade 3**.

---

abatitu, abatitzen du *ad* hil.

Jean hogeita lau urte zituela, irrati lapurreta batean merkatari batek "**abatitu**" zuen. Pablo Sastre

---

abatz 1 *iz* gaztagintzan eta esnearen gatzaketan erabiltzen den zurezko ontzia, bi euskarri dituena, kaikua eta goporra baino handiagoa.

Jainko-jainkosok, osoko biltzarrean kendu horri boterea; izpi-makolak oro hautsi haren gurpilari, eta amilarazi **abatza** zeruko muinoan behera eta infernu zuloraino! Juan Garzia

Intzirika biratzen ziren ardatzak **abatzetan**. Karlos Zabala

Gurdiaren gurpilak **abatzetaraino** sartu zitzaizkion lokatzetan, Nanterretik Paris bitartean. Karlos Zabala

Zaldien lokarriak bikoiztu, eta, segurtasuna handiagotu nahian, gurpil **abatzen** motelgailuak lastoz bete zituzten, bai gurpilak sendotzeko, bai danbatekoak leuntzeko, kolpe guztiak saihestea ezinezkoa baitzen gau ilunean. Karlos Zabala

Lokatzan gogotik zegoen sartua gurpil **abatzetaraino**. Karlos Zabala

2 ***abatz-estalki*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Gainera, eraikina Chrysler markako gurpil **abatz estalkiz** beteta dago solairu bakoitzaren kantoian. ETC-prentsa

17 Kale-borroka bat ikusten da, ondoko automobil baten **abatz-estalki** kromoztatu batean islatuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edo autoan ibiltzera eta kaleetan lehiatzera, ea nor gehien hurbildu kale-argietara, ea nor izan ausartena, ea nork **abatz-estalki** gehien hautsi kolpeka. ETC-literatura, saiakera

---

abazera *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi) iz* Karatxai-Txerkesian mintzatzen den hizkuntza.

Oinarritzat jasotako ingelesezko heteroglotonimoa 'a' bokalaz amaitzen bada, '-a e -=e' fonetika-legearen arabera proposatzea, hala nola, **abazera** (abaza -era), amueshera (amuesha -era), damera (dama -era) edo medumbera (medumba -era). ETC-zientzia, zuzenbidea

Esate batera, **abazeraz**: ETC-zientzia, zuzenbidea

Euren hizkuntza, **abazera**, ibero-kaukasoar familiakoa da. ETC-entziklopedia

Kaukasoar hizkuntzen artean Ipar-mendebaldeko kaukasoar familiakoa da, **abazera**, adigera, kabardera eta ubykherarekin batera. ETC-entziklopedia

---

abazuza ik **babazuza**.

---

abbastar *izlag/iz* dinastia musulman bateko kidea edo biztanlea.

Zein zen Islamaren indarraren sekretua bizirik irauteko, nahiz eta bere sortzailea hil, arabiar inperiogile primitiboak erori, arabiarren ordezko iraniarrak gainbehera joan, **Abbastar** Kalifaldia eraitsi eta kalifaldiaren hondakinetan, egun gutxirako, ezarri ziren ondorengo estatu barbaroak kolapsatu? Iñaki Mendiguren

---

abdikatu, abdika, abdikatzen du *ad* erregeak edo erreginak bere karguari uko egin.

Handik hiru egunera, Karlos Setimoren aitak (Juan de Borbón zeritzon gizen hark, alegia) Parisko Laffitte Hotelean, Madrileko giro politiko arriskugarritik ihes egin nahirik, **abdikatu** egin zuen. Txillardegi

Bi hilabeteren buruan erregeak **abdikatu** egin zuen, eta erret familiak erbestera jo behar izan zuen. Iban Zaldua

Hamida ongitxo jabetu zen, azken hitz haiekin, behin betiko **abdikatu** zuela. Patxi Zubizarreta

Isabel gaixoa il zen eta **abdikatzean** // zer esana eman zuen Espainia aldean. Xabier Olarra

Beraz Napoleon-ek, aita semeen arteko izigarriko kalapita baten ondotik, eskuratu zuen lehenik Fernando VII-ren **abdikatzea** bere aitaren fagoretan eta gero honek kargua utz zezan Frantziaren eskuetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

abdikazio *iz* abdikatzea.

Unamunok nahastu egiten ditu Aita handiaren **abdikazioa** eta Kristoren desagerpena. Joseba Zulaika

Pereirarekin batera Anacharsis izan zen Parisko artzapezpikuaren **abdikazioa** bultzatu zuena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hala ere, egia da, ilustratu liberalen batzuek ez dute Bourbon familiaren Baionako **abdikazioa** Bonaparteren alde onetsi. Joxe Azurmendi

Erlatibismoa filosofiaren **abdikazioa** da eta haren heriotza. Joxe Azurmendi

Abdikazio, [...] Errege-erreginak tronuaren berotasun gehiegizkoaz ohartzeko gauza direla frogatzen duen egintza. Xabier Olarra

---

abdomen *(ETCn **400** agerraldi)* 1 *iz* sabelaldea, ugaztunetan toraxetik diafragmak bereizten duena.

Hor hasten dira agertzen, zirriborroan, burua izatekoa, bere begi, baraila eta antenekin; toraxa izatekoa, hegal pare batekin eta hiru hanka parerekin; **abdomena** izatekoa, bere uzkialdearekin. Juan Garzia

Diafragmaren jaisteak sarrarazten du airea biriketara; barrunbe torazikoaren eta **abdomenaren** artean dagoen ehunmihise bat da diafragma. Irene Aldasoro

Intsektu argi-emaileak dira, are argirik gehien ematen omen duten intsektuak, edo halaxe dute fama, bederen, soin-enborraren bi aldeetan argia ematen duten bi organo dituztelako, baita beste bat ere, **abdomenaren** azpiko aldean. Jon Alonso

Diafragmaren mugimenduak lagundu egiten dio efektu horri, diafragmak bular-kaiola zabaldu eta **abdomeneko** barrunbea estutu egiten baitu, eta, horrenbestez, presioa gehitu. Irene Aldasoro

Abdomeneko pareta eta umetoki-pareta ebakiz fetua amaren sabeletik kanporatzeko egiten den ebakuntza da zesarea. Berria - Gaiak

Sabelaren diametroa murriztuz doa **abdomen** laua izan arte, eta Elenarenak izango diren buru, beso eta zangoak difuminatuz doaz akuarela amniotikoan. Eider Rodriguez

Nahiko presio handia sortzen da biriketan diafragma eta **abdomen**-muskuluak uzkurtuz, baina usinaren aire-kolpeak ezin du ondo gainditu bihurgune itxia, eta ahotik egiten du ihes aire gehienak. Irene Aldasoro

2 ***abdomeneko aorta*** *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Abdomeneko aorta arteria handiaren beheko zatia da. Diafragman hasten da, beherantz toraxeko aortaren jarraipena izanda, eta arteria iliakoetan amaitzen da. ETC-

entziklopedia

Barrabil-arteriak **abdomeneko aortatik** irteten dira, eta beherantz joaten dira izterrondoko kanalean zehar, eskrotoan sartzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Funtsezko bi bide daude ekiteko: femorala edo Seldinger-en teknika aorta gaineko enborrak, goiko gorputz-ataletako arteriak eta **abdomeneko aorta** eta haren adarrak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aorta alboko, bereziki **abdomeneko aortaren** aldamenean gongoil sinpatikoetatik gertu kokatzen den zelula taldea (Corpora paraaortica, Glomera aortica). ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *abdomeneko kanpoko muskulu lapran* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Iztai hodia iztai mailan abdomen hormak zeharkatzen dituen pasabidea da. Horma horiek sakonetik azalerara, zeharkako faszia (fascia transversalis), abdomeneko zeharkako muskulua, abdomeneko barneko muskulu laprana eta **abdomeneko kanpoko muskulu laprana**ren aponeurosiak dira. ETC-entziklopedia

4 *abdomeneko muskulu zuzen* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

-Erpuruen muturrak saihetsen ertzetan jartzen dira, hain zuzen 8. saihetsa **abdomeneko muskulu zuzenetan** txertatzen den gunean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Abdomeneko muskulu zuzena sabel hormetako muskulu bat da. 5-7. saihetsetako kartilago aurpegitik eta xifoide apofisitik pubiseko arantzara eta sinfisi pubikora heltzen da, zuntzak bertikalki doazelarik. ETC-entziklopedia

---

abdominal 1 *izond* abdomenari dagokiona, abdomenekoa.

Laparoskopia bat egitea barrunbe **abdominaleko** azterketa endoskopiko bat egitea da berez, eta hori egiteko nahikoa da zentimetro gutxiko ebaki bat egitea. Berria - Gaiak

Ariketa **abdominalak** egiten zituen. Berria - Kultura

Galdeketetarako gela batera eraman dutela, biluztu egin dutela eta ehundaka flexio egitera behartu dutela (**abdominalak**, belaun gainean...), beldurtu nahian genitaletan kolpeak eman dizkiotela Berria - Euskal Herria

2 *iz pl* abdomeneko giharrak.

Arraunean **abdominalek** sufritzen dute gehien, eta, jakina, ipurdiak. Berria - Kirola

Askotan harrapatzen nuen ispiluaren aurrean bere burua aztertzen; bere burua, bere bizepsak, bere **abdominalak** edo bere paketearen neurria, egun hartan bezala. Jon Arretxe

Abdominalak hilduratzearen poderioz etorri ohi da gerriaren zalutasuna. Koldo Izagirre

Ortizek mina zuen atzo **abdominaletan**, eta ez dago garbi gaur entrenatuko den. Berria - Kirola

3 *pl* abdomeneko giharrak sendotzeko ariketak.

Udazkenean masajeak hartu ditut, fisioarekin egon, bizikleta gaineko postura aldatu, **abdominalak** egin, luzaketak. Berria - Kirola

Abdominalak egitea bezala da. Ana Urkiza

Maruk itsu-itsuan eta txintik ere atera gabe egiten zituen Brown sarjentuak agintzen zuen guztia: **abdominalak**, lasterraldiak, halterofilia-zirkuituak, judo eta norberaren defentsarako ariketak, pista amerikarra. Berria - Kultura

Bizarra egin berriaren lurrina zabaltzen du hurbiltzen zaizunean, Axe Marina uste dut Sport Man dagokion arren, gimnasiotik heldu berria izanen da hainbat **abdominal** egin ondoren. Koldo Izagirre

4 *arnasketa abdominal* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Arnasketa abdominalari ekiteko, lasai eta eroso egon behar dugu: azalera ez oso bigun baten gainean etzanda, eserita baina bizkarra inon bermatu gabe, edo baita zutik ere, bakoitzak nahiago duen jarreran, baina beti modu lasai eta eroso batean. ETC-prentsa

Arnasketa abdominal paradoxikoa izatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *barrunbe abdominal*

Laparoskopia bat egitea **barrunbe abdominaleko** azterketa endoskopiko bat egitea da berez, eta hori egiteko nahikoa da zentimetro gutxiko ebaki bat egitea. Berria - Gaiak

---

abduktore *iz* gorputzaren zati edo atal bat haren simetria planotik urruntzea eragiten duen giharretako bakoitza.

Asteazkeneko entrenamendu saioan ezin izan zen aritu taldekideekin batera, **abduktorea** minduta zuelako. Berria - Kirola

Hasieran **abduktorea** hautsi zuela bazirudien ere, mediku azterketak soleo giharreko haustura zela erakutsi zuen. Berria - Kirola

Ibili, ibili, ibili eta igerileku lana baino ezin nuen egin, igeri egin gabe uretan giharrak landuz, hala **abduktoreak** berrindartu ahal izateko. Berria - Kirola

Abduktoreetan du mina Lievremontek, ez da lesio larria, baina ez jokatzea erabaki du. Berria - Kirola

Ruben Belokik zaintiratua egin zuen ezker hankako **abduktorean**. Berria - Kirola

---

abdukzio *iz* silogismo mota, lehen premisa soilik duena ebidentea.

Humeri emandako erantzun bat Charles S.Peirce pragmatista iparamerikarraren **abdukziozko** arrazoinamendua da. Askoren artean

---

abduzitu, abduzi, abduzitzen du *ad* norbait espiritu batek edo estralurtar batek bahitu.

Joseba Leturiaren egunkaria eskuratzen digu argitaratzaileak, berbarako, errepikatu egingo du, Leturia hil ostean, Josebak eleberriaren hasieran idatzirikoa, alegia, bizi izanikoa, betiko biribila zaharberrituz, Leturiak **abduzitu** balu bezala, Leturiaren itzala haren arimaz jabetu bailitzan. Berria - Kultura

---

abegi *(ETCn **1.197** agerraldi)* 1 *iz* harrera, eskuarki ona edo beroa.

Nik nabaritzen nuen Montseren **abegia**, harrera beroa, haren begien txinparta hitz egiten genuenean; ez nekien interpretatzen, ordea. Xabier Mendiguren Elizegi

Jende horri **abegia** eta euskal kulturarekiko zubiak eskaintzeko egiturarik ez da, ez paperetan, ez gogoetan. Berria - Harian

Barrenak ez zidan halakorik eskatzen, eta atzean geratu nintzen, Hermannek erakusten zizkion txera eta **abegia** ulertu ezinez: nire lagunaren jarduera beraska hartan ez nuen antzematen hain ondo ezagutzen nion ezpal gogorra. Anjel Lertxundi

Neska alemanari batere axola ez nintzaiola, egun guzti-guztirako uzten ninduen bakarrik eta, **abegiaren** kontuaz gainera, bihotzetik hitz bakar bat ere ez. Fernando Rey

Inazio Mujika Iraola editorearentzat, orduko liburuan narraziotzat har zitezkeen poemak ziren, eta oraingo honetan ere badira han **abegi** aurkituko zutenak. Berria - Kultura

Frigiara iritsi zirenean, txoko guztiak miatu zituzten eta **abegi** emango zien norbaiten bila ibili, baina ez zuten inor aurkitu. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (izenondoekin)

Germaniarrek beren erresumak fundatu zituztenean, **abegi** on hori neke bihurtu zitzaien. Iñaki Iñurrieta

Denei egiten die **abegi** on, harrera adeitsua, eta ez dio inori galdatzen izan denari uko egiteko. Imanol Zurutuza

Egiozue **abegi** ona batak besteari, marmarrik gabe. Elizen arteko biblia

Bere gogoetetan murgildurik, ez zion batere arretarik jartzen kotxezainari, zeinak, Maniloven etxeko zerbitzari-jendeak eginiko **abegi** onak alaiturik, oso oharpen zuhurrak egiten baitzizkion troikako laguntza-zaldi izpildunari. Jose Morales

Emazteak -xaloa eta berritsua bera- **abegi** oneko emakumea zelako ospea zuen. Jose Morales

Jeneralak nahikoa **abegi** on eta adeitsua egiten zion hasieran Tentetnikovi; baina ezinezkoa zitzaien elkarrekin guztiz ondo etortzea. Jose Morales

Hark **abegi** onez hartu zuen. Eskarne Mujika

Ez zuten soldaduek ez bekaitzik ez gorrotorik begiradan, ez maitasunik ez **abegi** onik. Felipe Juaristi

Ez zuen **abegi** onik eskatu, ez zuen irribarrerik eta zintzotasunik eta etxerik nahi. Urtzi Urrutikoeetxea

Gau hartan berean, Prévan jaunari **abegi** arras ona egin zioten bere guda taldetik han gertatu ziren ofizialek. Jon Muñoz

Martak afana azaltzen du Jesus **abegi** onenez hartzeko lehenik, eta ahalik eta egokien eta hornituen zerbitzeko gero. Pello Zabala

Abegi hobereneko gizona zen Beñat Ithurralde Barbeenekoa. Herria

Abegi bikaina egin zitzaion zain egon zen bitartean. Xabier Olarra

Hasieran barbaroek lapurretagai baizik ez zuten ikusten merkataritza, eta ezarri zirenean, ez zioten nekazaritzari herri garaituaren beste lanbideei baino **abegi** hobea egin. Iñaki Iñurrieta

Antzara eta zisneetara ohituago dauden hiritarrek **abegi** ezin hobea egin zieten. Patxi Zubizarreta

Jatorri tatariarreko biztanleek ez zieten batere **abegi** txarrik egin soldadu andanei. Karlos Zabala

Iparraldean ere ez zieten denek **abegi** gozoa egin iheslariei. Jokin Urain

Eta hi, Ingalaterra, ene oniritzia ezertan badaukak [...], ez ahal diok **abegi** hotza egingo gure errege-agindu honi. Juan Garzia

Zerbitzari **abegi** txarrekoari ezikusia eginez, niganaino egin zuen zuzen-zuzen. Aingeru Epaltza

Anaiek, ohi bezala, oso **abegi** gozoa egin zieten eta bihotzez poztu ziren haiek iristearekin. Askoren artean

Hemen, **abegi** guztiz onbera egin zieten bertako gotzainak eta gotzainaren iloba eta katedraleko kalonjea zen bikarioak. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Ezin zitekeen joan ezein erakunde babeslerengana sorospen eske, beldur baitzen Raymond ebatsi eta **abegi** -etxeren batean sartuko ote zioten. Mirentxu Larrañaga

4 ***abegi egin*** begitarte egin, harrera ona egin.

Belardi hartan lo egin genuen Lauaxetak eta biok, itsasoko uhinen zaratei gure ametsen barruan **abegi eginez**. Juan Luis Zabala

"Zatoz nigana, otoi, Byron nirea!" Besoak zabaltzen ditu, iluntasuna besarkatuz, hark ekarriko dionari **abegi eginez**. Oskar Arana

Sodomarrek ez zieten **abegirik egin** bisitari ezezagunei, baina egiptoarrek esklabo bihurtu zituzten etorkin ongileak. Elizen arteko biblia

Txalo-zaparrada batez **egin** zioten **abegi** han bildutakoek sekula entzun-ikusi gabeko emanaldi hari. Jon Muñoz

Gizalegez **egin** behar diok **abegi**. Matías Múgica

Sorterria zabaltzen zitzaien aurrean, eta Enperadorearen guardiak, bihotzaren taupada bortitzen artean, **abegi egiten** zien lurraldea bere patu ere bazuela sentitu zuen. Xabier Olarra

Turko bikaina zen; ez arabiarra, turkoa baizik, lodia, abegikorra, xarmagarria, turkoz jantzia, turbante eta guzti, bizkarrean seda saltegi oso bat zeramana, Frantziako Antzerkiko egiazko turko bat, beraz, diban zoragarri batean gozokiak eskainiz **abegi egiten** zidana. Josu Zabaleta

5 ***abegi familia*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Haurrak familia handien edo **abegi familien** mende geratu direnean, lan edota sexu esplotazioa jasan dute askotan, eta ia beti diskriminatu egin dituzte familiako haurrekin alderatuta, eta gobernuak ez du ezer ere egin horren aurrean. ETC-prentsa

Bai, gero eta zailagoa egiten ari zaie elkarteei honelako umeentzako **abegi-familiak** aurkitzea, ez da plana urtea lanean ematea gero oporretan bizitza nahasteko. ETC-prentsa

Abegi-familia batera eraman zuten, Terrik, bezero baten jipoiaren ostean, ospitalean amaitu behar izan zuelako. ETC-literatura, saiakera

6 ***abegiz*** *adlag* abegi onez.

Aulki bat hurreratuta, esertzeko agindu dizu **abegiz**. Rafa Egiguren

-Ez al zaizue inporta automobilak beste leku hartan uztea? -eskatu zigun **abegiz**, modu onean, eskua metro batzuk urrutiago zegoen leku batera begira. Rafa Egiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abegi egin (3); **abegi eginez** (3); **abegi egiten** (5); **abegi on** (9); **abegi ona** (39); **abegi ona egin** (6); **abegi ona egiten** (5); **abegi onak** (3); **abegi oneko** (5); **abegi onez** (3); **abegi onik** (3); **egiptoarren abegi** (3); **egiptoarren abegi ona** (3); **eta abegi** (8); **eta abegi oneko** (3); **jaunak abegi** (3); **oso abegi** (5)

---

abegikor *(ETCn **662** agerraldi)* **1** *izond* pertsonez mintzatuz, abegi ona egiten duena. ik **abegitsu**. (pertsonez)

Egeak, berean itxita, zin egin zuen Haydn zela San Luis uharteko denda hartan ikusitakoa eta gaineratu zuen gizon **abegikorra** zela, atsegin eta beroaz gainera. Felipe Juaristi

Turko bikaina zen; ez arabiarra, turkoa baizik, lodia, **abegikorra**, xarmagarria, turkoz jantzia, turbante eta guzti, bizkarrean seda saltegi oso bat zeramana, Frantziako Antzerkiko egiazko turko bat, beraz. Josu Zabaleta

Pentsatu dugu ezen aterbe seguragoa izan daitekeela zuentzat guarnizinoko gartzela, Fernando Pachecoren ostatua baino, gure soldadu hauek zaintzaile ezin **abegikorragoak** direnez gero. Joan Mari Irigoien

Zein leuna zen, zein **abegikorra**, zein gozoak haren usainak! Karlos Zabala

Martak, bere neurrien barruan **abegikor** izaten saiatu arren, gozotasunik ez zuen irribarre saiakera haietako bat egin eta kanpoko ateko kisketa bikoitza itxi zuen. Harkaitz Cano

2 (bestelakoez)

Zoragarria litzateke! -hitz **abegikor** batek ez zuen sekula hainbesteko eskerrona sorrarazi berarengan-. Agustin Otsoa

Hitz eta keinu **abegikorrak**. Joan Mari Irigoien

Irri **abegikor** batekin hurbildu eta muturreko bat eman niezaiokeen, modurik zakarrenean. Berria - Kultura

Einsteinen ahoak irribarre **abegikorra** egiten zuen, baina begiek ez zuten ezer utzi aztertu gabe. Fernando Morillo

Ostalersa, Basquetz anderea, emakume ezin hobea da, behako espiritual, **abegikor**, gozo eta alegerakoa. Koldo Izagirre

Buruak nire aldera itzuli baditutze ere, ez diet niri entzuteko jarrera **abegikorrik** ikusi. Joxean Agirre

Gure garaion, naturaren ikuspen suntsitzaile hau askoz gaitziago zaigu, harengandik ama baten altzo **abegikorra** bakarrik nahi baitugu. Xabier Amuriza

Kafetegia ez zen handia, baina txukuna eta **abegikorra** ematen zuen. Migel Angel Mintegi

Toki alai eta atsegina, toki bero eta **abegikorra**. Felipe Juaristi

Behin barruan, gidariak eskailera tailatu luzean gora eraman zituen, lehenengo solairura, eta gero gela **abegikor** batera. Agustin Otsoa

Ateak itxita izan arren, teilatupe irekiak eta arkupeak behintzat **abegikorrak** izaten dituzte Euskal Herriko elizek. Juan Luis Zabala

Pintatuko horma eta erretako autoen berri ematen zionean, atzerrian emandako hiru hilabeteen oroitzapenetan murgiltzen zen eta Parisen pasatutako astebetea ekartzen zuen gogora -hiri ireki eta **abegikorra**, jende atseginekoa irizten zion-, hala nola Norvegiara egindako bidaia. Bego Montorio

Lanerako esku merkea ongi etorria zen Fronte Popularraren Frantzia **abegikorrean** ere. Jokin Urain

Combesek, hala ere, dimisioa aurkeztu zuen 1905ko urtarrilaren 18an, eztabaidatuko zen egitasmoa elizarekiko sobera **abegikorra** zela argudiatuz. Berria - Harian

Harryren iritzian, aitorlekua bezain **abegikor** eta pribatu irudikoa zen tokia. Oskar Arana

3 (adizlagun gisa)

Monikek **abegikor** begiratu zion Karli. Eider Rodriguez

Pertzepzio imajinatiboak "halako kateakuntza" baten arabera batzen dira: denboran hurrenez-hurrenezkotasunak afekzioen ideiei ezartzen dien ordenak, zeinak giza gorputzak **abegikor** jasotzen dituen. Hau ama bezala aterako zaio bidera, emazte gazteak bezala hartuko **abegikor**. Piarres Xarriton

Amaliak, ohi ez bezala, irribarretsu bezain **abegikor** hartu baininduen bere etxeko atea ireki bezain laster. Josetxo Azkona

Atariraino lagundu zuten Mijail printzea, eta alkateak han agurtu zuen, irribarre maltzurrez, **abegikor**. Felipe Juaristi

Sartu borda barrura nahi baduzue -eskaini zigun **abegikor**-. Juan Luis Zabala

Altxa egin zen, sorbaldan jo zizun **abegikor**. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta abegikorra (3); **irri abegikor** (3); **irribarre abegikorra** (3)

---

abegikortasun 1 *iz* abegikorra denaren nolakotasuna.

Gorputzarekin eta zentzumenekin hartzen diete haiek gauzei neurria, **abegikortasuna** edo gogaikarritasuna. Pako Aristi

Ez zaio ahazten, normalean, eta eskertzen diot **abegikortasun** hori, nire baitan. Iban Zaldua

Irakiarrek oso ondo hartu gaituzte, ohiko **abegikortasunarekin**. Berria - Mundua

Gauza batzuk behintzat lehen bezala mantentzen dira: kanpotarrekiko **abegikortasuna**, momentuan pentsatzeko joera, patxada eta lasaitasuna, familiaren garrantzia eta zaharrekiko errespetu erabatekoa. Berria - Kultura

Halaxe eleztatu zitzaigun hura, **abegikortasunez**, bai, baina baita engainamendurik gabe ere: [...]. Joan Mari Irigoien

Haren **abegikortasunaz** abusatu zuten, haren ontasunaz, ez zituela-eta iraindu nahi ez eta inorekin malmetitu ere. Juan Garzia

Sukalde epelean eseri ziren familiarekin, eta Landakoetxetarrek, **abegikortasun** hutsez, galdera gutxi batzuk egin zizkieten egindako bidaien gainean. Agustin Otsoa

Abegikortasun gehiegizkoa, esan bezala, handiegia. Joxe Austin Arrieta

Komunitate-homogeneotasunaren ideala, Mendebaldeko Kristandadeak bere giroan arrotz ziren juduenganako izan zuen **abegikortasun**-falta bereziaren zio politikoa zena, indartu egin zen denboran zehar ekonomi eta gizarte-garapenagatik. Iñaki Mendiguren

---

abegitasun *iz* abegikortasuna.

Abegitasun harekin harropozturik, Abasek bihotza zabaldu zion eta ez zen ohartu ere egin Selimek, bere begi hondoratuekin, josten zion begirakuneaz. Patxi Zubizarreta

Une hartantxe beste pertsona bat sartu zen, denek ere **abegitasunez** eta onespenez hartu zutena, eta haren agurra neurriz kanpo onetsi zuten. Patxi Zubizarreta

Esan zion morroiak Barbarari bihotz anker hartan erruki apurrik bazuen, umezurtz izanik jaso zuen Graeme familiarenganako **abegitasun** pittin bat gordetzen bazuen, joan zedila William gaixoa bisitatzera eta maitasunak sortutako eritasun kutsakor hartatik piztera. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

abegitsu 1 *izond* abegikorra.

Noiztik zegoen siberiar **abegitsu** haren etxean? Karlos Zabala

Aurrerantzean ere gizaseme lerden eta **abegitsuak** joango zitzaizkion bisitan, eta adi-adi entzungo zuten haren hegoaldeko doinu nagia. Mirentxu Larrañaga

Pentsatu dut hori besterik ez dela agian bidaia guztien helburua, 'bizitza' deitzen dugun bidai luze honen objektua: gure urteak pasatzeko leku **abegitsu** bat eskainiko diguten begi batzuk aurkitzea. Pako Aristi

Haurrak balira bezala baitatoz, hitz **abegitsuren** bat entzutearren edo bizkarrean zapladatxo batzuk hartzearren. Joan Mari Irigoien

Lo egon arren egin zion harreraren leuntasunak xarma **abegitsua** adierazten zuen. Ibon Uribarri

Jendearen aldetik berriz, jarrera **abegitsua** da. Berria - Euskal Herria

-Baita zuei ere -andrearen diosal **abegitsua**-. Aitor Arana

Ez ziren isilune **abegitsu** eta lagunartekoak, jendea elkartuta dagoenean tarteka gertatu ohi diren horietakoak. berak ez du osatzen denborarik gabeko liburutegia, ezta liburutegi guztien lekua ere; baina bera ez da, ezta ere, ahanztura **abegitsua**, hitz berri guztiei bere askatasunaren jardute-eremua irekitzen diena. Mirentxu Larrañaga

Udaberriko epeltasun **abegitsua** etorri zen neguko hotz mingarria ordezkatzera. Patxi Zubizarreta

-*Ham and eggs*, zerbait bero nahi badu berorrek -gomendatu zion Franzek Vienako zerbitzarien modu **abegitsuan**. Anton Garikano

Han edo hemen jo ondoan kanpora ateratako soldaduak gure murru **abegitsuetara** itzultzen zirelarik, premia zuten norbaiten babesa. Aingeru Epaltza

Emazteak jakin-min **abegitsuz** begiratu zion senarrari. Mirentxu Larrañaga

Beatriceren ahotsa leuna da, **abegitsua**, parean dugun itsaso puskaren antzekoa. Iban Zaldua

-Ikaragarri **abegitsua** iruditzen zait -esan zuen emakumeak-. Mirentxu Larrañaga

Lazeria gorrian bizi ziren greziar apezpiku guztiak ez ziren batere **abegitsuak**. Iñaki Mendiguren

2 (adizlagun gisa)

Abegitsu hartuko zuten hartu ere, baina nekez eskuratuko zuen haien etxeetan biderako behar zuena! Karlos Zabala

Izoztu egiten dira gizonen biboteak eta abereen muturrak, baina **abegitsu** distiratzen du leiho txiki batek hor goian, etxebizitza bateko laugarren solairuan. Jose Morales

Okulista presaka doa, eta Lizarriturri potoko esnea baino lasaiago dator barrara, **abegitsu**, okulistarena egitera, entzuten egon zaizkionekin askotan egiten duen legez. Pako Aristi

Tarte bat pasatuta, ostera, damutu zait berarekin hain **abegitsu** jokatu izana. Jon Arretxe

Oso **abegitsu** portatzen da nirekin, eta ni ikustera joatea egiaz gustatzen zaio, nik uste. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
abegitsu eta (4); **abegitsu hartu** (3); **eta abegitsu** (3)

---

abegitu, abegi(tu), abegitzen du *ad* abegi egin.

Bestalde, berak baimentzen duenez diskurtsoak euren benetako bilakaeraren legean antzematea, argitu ahal izan behar du nolatan era horretako diskurtso batek, une jakin batean, **abegi** dezakeen eta jardunean ipini dezakeen, edo, alderantziz, alboratu, ahaztu, edo kontuan ez hartu, honako edo halako egitura formala. Xabier Arregi

---

abelazkuntza *iz* abere hazkuntza.

Egitasmoaren helburu nagusia sektoreak errentagarritasun handiagoa lortzea da, betiere, Euskal Herriko **abelazkuntza** tradizionala mantenduz eta lur eremu handiak zein txikiak landuz. Berria - Ekonomia

Basamortutzearen Kontrako Akzio Planaren barruan egin du txostena Gobernuak Nekazaritzako eta **Abelazkuntzako** Institutu Nazionalarekin batera. Berria - Gaiak

Baina ez dira garai samurrak **abelazkuntzarako**: behi eroen auzia, pentsu kutsatuak, sukar aftosoa. Patxi Iturritegi

abelbide *iz* abereek erabiltzen duten bidea. ik **altxonbide**.

Unibertsitateko zelaietatik pasatzen den **abelbidean** artalde bat askatu zuen. Berria - Euskal Herria

Aralarreko ordezkariek handik **abelbidea** pasatzen zela azaldu zieten. Berria - Euskal Herria

Zabaletaren ustez, alderdi jakin batzuk "pribatizaziorako duten interes zentzugabearen" eredu da Nafarroan **abelbideekin** gertatu dena. Berria - Euskal Herria

---

abelburu *iz* abere burua, abere multzo bateko banako bakoitza.

Behien entzefalopatia espongiformeak, behi eroen gaitzak, **abelburu** bat hil du Suedian, 2003an, 41.000 **abelburu** hil zituzten Bilboko hiltegian. Berria - Gaiak

Abelburuak izatea eta saltzea debekatu zieten. Berria - Harian

Ardien eta ahuntzen artegiak behar bezain handiak egin behar dira, alegia, **abelburu** bakoitzak izan dezala ez lau oin eta erdi baino gutxiagoko azalera, eta ezta sei oin baino handiagoa ere. Santiago Iruretagoiena

Hori ez omen zuen Istillagak gogoko: **abelburu** asko dituzten etxaldeak gogorarazten omen zizkion, buru bakoitza belarrian bere zenbakia duela. Pako Aristi

Dena saldu behar duzu, eta **abelburu** bana eman mujikei, egun bakar batez ere lanerako baliabiderik gabe gera ez daitezen. Jose Morales

Landuyt hormonetan aditua da, eta **abelburuei** hazteko hormonak ematea leporatu zioten. Berria - Kirola

Behi eroen gaitza **abelburuen** elikadura eskasarekin lotu izan da; abere irinekin egindako pentsuekin. Berria - Gaiak

Abelburuen pisaketa-lana. Patxi Iturritegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abelburu bat** (3); **abelburu guztiak** (3); **abelburu hil** (4)

---

abeldegi *iz* abere biltegia.

Egun hartan, aitaren manuz bazkarirako ekarri abereak eta animaliak, batzuk ukuiluetarat eta **abeldegietarat**, [...] bildu zituzten. Joan Mari Irigoien

Orain galdetzen dizut, jaun André, ez ote ziren bai zezen hura eta bai bertze guztiak ere jondone Sebastianen **abeldegikoak**. Joan Mari Irigoien

Ama guztiz setatu zela eta erabaki zuela ezen ez zegoela prest harekin bizitzeko, **abeldegiren** batean edo bertze nonbait bakartzen ez bazuten bederen. Joan Mari Irigoien

---

abeldun *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* abereak zaintzen dituen pertsona, eskuarki bizibidez. ik **abeltzain**.

Lehenengo abiagunetzat Behe Brontze Aroko **abeldun** komunitateak har daitezke. ETC-entziklopedia

---

abelera *iz* egoera.

Horregatik gaude **abelera** honetan. Berria - Kirola

Hura **abelera** uda hartan: osasuna ez ezik, lanarekin etxea galdu zuen Virgilek. Xabier Olarra

Esan liteke kontraste hori bera dela bere narrazioei halako originaltasun eta indarra ematen dizkiena, ghetto-ko gizon-emakume haien **abelera** eta eldarnioen atzean geure gaurko grinak eta ezinak ezagutzen baititugu, aldeak alde eta aldiak aldi. Berria - Kultura

Aramendik beti dauka analisi materialista egoki bat edozein **abeleratarako**. Xabier Mendiguren Elizegi

Horiek horrela, **abelera** ederra dauka Kataluniako gobernuak PSC alderdia kapaz ez bada bere iparra bilatzeko. Berria - Euskal Herria

Ordu erdiko arraunketara, itsasgainek ardoraren zilarrez behar dute: arrantza egiteko **abelerarik** onenean. Anjel Lertxundi

Abelera gaizto hartatik bera libratu eta salbatzeagatik. Xabier Mendiguren Elizegi

Jainko-jainkosek berek balute orduan ikusi, noiz eta baitzuen berak **abelera** gaiztoz ikusi Pirro ezpataz txikitzen senarraren gorputz atalak, erreginaren auhen zorrotzak behar zituzkeen, non eta hilkorroz guztiz axolagabe ez diren. Juan Garzia

Bitartean alaba, zalaparta handiak entzun baititu, gelara hurbildu da, eta aita **abelera** odoltsu hartan ikusita, oihuka hasi da laguntza eske, apaiz eske, zeruaren erruki eske. Anjel Lertxundi

Unamuno aurkitu da **abelera** kuriosoan, batetik, Amerika krioloa bere ideia panhispanistan biltzeko, garrantzi guztia hizkuntzari eta hizkuntzari bakarrik eman beharra zeukala, arraza diferentziak-eta gutxietsiz edo zabartuz; baina bere burua definitzeko, pertsona den aldetik nahiz idazle bere gisako den neurrian, arraza beste elementurik ez daukala -euskotarra [...]. Joxe Azurmendi

---

abeletxe *iz* abereak gordetzen diren edozein toki babestu edo estalpetu, baserritik bereizia.

Hemen **abeletxe** gutxi dituzue eta bertan bildutako hegaztiak ere ez dira asko. Berria - Harian

Abeltzainak, lana amaiturik, **abeletxeetako** atetzarren alboan zeuden, esne-lapikoen eta arrain-zoparako gonbitaren zain. Jose Morales

[Liburua] behi, ardi eta txerri aziendaren diagramekin hasten zen, eta, hurrena, gero eta arrantxo konplexuagoetarako **abeletxeen** eta bazkatokietako tresnerien diseinuak zetozen. Xabier Olarra

Hori izan zen hasiera, eta hala pixkanaka gidatu zuen **abeletxeetako** aziendarekiko eta makineriari buruzko ardura zehatzetik biologiaz eta zientziez oro har arduratzera. Xabier Olarra

Hegazti **abeletxe** batetik besterako distantziak txikiak badira, birusa haizearen bitartez ere zabal daitekeela aipatu zuen. Berria - Harian

---

abelgorri *iz* behiaren espezieko aberea.

Abelgorri errubi-gorrizta saldo bat sakabanatu egin zen, ikaratuta, gu albotik iragatean, eta buztanak tente-tente ospa egin zuten. Mirentxu Larrañaga

Diru laguntzak hartzeko moduan dira garai batean **abelgorri** arrak, esnetarako abereak, ale lekadunak edo oliba olioa ekoizten zuten nekazariak. Berria - Ekonomia

Asteartean eztituzte **abelgorriak** borda batetik bertzera aldatzen, hala diote Aezkoan. Pello Zabala

Zuetako batek Jaunari oparia eskaini behar badio, abere bat aukeratuko du, **abelgorria** nahiz abere xehea. Elizen arteko biblia

Aziendak, **abelgorriak** eta ardiak ere ez omen dira ostiralean mendira eraman behar. Pello Zabala

Abelgorriak aukera-aukerakoak ziren. Jose Morales

Haragietan, "kapritxotsuek" gaur bezala **abelgorria** sei edo zortzi urtez haziko dute. Edorta Agirre

Niregana joko duen herriak Xaron lautada izango du ardien bazkaleku, Akor harana **abelgorrien** etzaleku. Elizen arteko biblia

San Elias herrian behi-izurria sortu zen ("Basabove" deitzen dio herriak, eta ez du **abelgorririk** bizirik uzten). Askoren artean

Xarongo larreetan bazkatu ohi ziren **abelgorrien** arduraduna Xitrai, Xarongoa. Elizen arteko biblia

17 **abelgorri**-mota, 60 felino, 8 saguzar, 89 suge, 315 tximino, 40 pakidermo. Josetxo Azkona

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
abelgorria nahiz abere (4)

---

abelgorriki *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *iz* abelgorriaren haragia.

Abelazkuntzaren ezarpenarekin, haragia lortzea erraztu egin zen, baina animaliak zaintzea eta haztea garestia denez (kilogramo bat oilo-haragi lortzeko, 2 kg pentsu behar dira; kilogramo bat txerriki lortzeko, 4 kg pentsu, eta kilogramo bat **abelgorriki** lortzeko, 8 kg pentsu), haragiak ez zuen balio gehiegi galdu jaki gisa. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

abeltalde *iz* abere taldea.

-Neureak ditut alaba horiek, neureak haur horiek, neureak **abeltalde** hori eta ikusten dituzun gauza guztiak. Jose Antonio Mujika

-Zoazte nire aurretik, **abeltalde** batetik bestera tarte bat utzirik. Jose Antonio Mujika

Eta Mesopotamian eskuratutako **abeltalde** eta ondasun guztiak aurretik zituela, Kanaan alderantz abiatu zen, bere aita Isaaken etxerantz. Jose Antonio Mujika

-Ez baduk ulertu nahi ez alkate eta ez hire **abeltalde** horretako buru bezala, ulertu behintzat seme baten aita haizelako -auskalo hirea den ere- beharrezkoa dela laguntzea apaizetxeko horma ikatzaz zikintzera etortzen zaidan dohakabe horri. Koldo Biguri

Eta ondotik berealdiko jende-multzoa zihoan, beren ardi eta behiekin, eta **abeltalde** handiekin. Jose Antonio Mujika

---

abeltegi *(orobat **aberetegi** g.er.)* *iz* ukuilua.

Ankerkeria nabarmeneko aro bat izan zen, bai animaliekin egiten ziren esperimentuen arloan, bai **abeltegi** eta hiltegienean ere. Xabier Olarra

Abeltegiak, merkatariek animalia biziak edukitzeko erabiltzen zituzten gelaxka estu haiek, korridore erregularretan lerrokatzen ziren, angelu zuzenetan ebakirik. Karlos Zabala

Hegaztien **abeltegietan** afaltzen ari ziren bake-bakean, animaliak hiltzeko harrietako baten gainean eserita. Karlos Zabala

Abeltegiko alanbre sarea hautsez eta amaraunez betea zegoen, olana grisez estalita zegoela iruditzeraino. Karlos Zabala

Lisak angeluetako dorretxo baten barnealdea ikusi zuen, irteera hodi zabal moduko bat, **abeltegiko** aire nazkagarriaren ihesbidea. Karlos Zabala

Gobernuak baimena ematen die **abeltegiei** ibai bazterretan kokatzeko. Berria - Harian

Abeltegitik atera eta oinak garbitu zituen, soinekoa apur bat goratuz zikinkeriatik babesteko. Karlos Zabala

Herririk kilometro erdira sendiak duen **abeltegi**-biltegian egiten ditu prestaketak, autobide ertzean, Beriain mendia gibelean duela. Unibertsitateko esperimentu-**abeltegira** joan ginen, han egiten baitu Templek gehienbat oinarrizko landa-lana. Berria - Kirola

---

abeltxuri *iz* abere zuria.

Baina, atsotitz honek kutsu sinbolikoa dizu, eta bi oineko **abeltxuri** gaixoez ari dela dirudi. Patziku Perurena

---

abeltzain *(ETCn **2.331** agerraldi; orobat **abelzain** g.er. eta **aberezain** g.er.)* **1** *iz* abereak zaintzen dituen pertsona, eskuarki bizibidez.

Orduan, elkarturik biziko dira Juda osoan nekazariak eta larrez larre dabiltzan **abeltzainak**. Elizen arteko biblia

Datuak ordenagailuan sartu, eta eramandako animaliei **abeltzainaren** zenbakia margotu diete bizkarrean. Patxi Iturritegi

Nekazari eta **Abeltzainen** Koordinadorak. Berria - Gaiak

Abeltzainak, lana amaiturik, abeletxeetako atetzarren alboan zeuden, esne-lapikoen eta arrain-zoparako gonbitaren zain. Jose Morales

Krisia are handiagoa da behi-haziendetako **abeltzainen** artean. Berria - Ekonomia

Txorakeriatan ibiltzen ez diren **abeltzain** sendo horietako bat iruditu zitzaidan emakumea. Xabier Olarra

Texas, Venezuela eta Argentinako lautadetan zaldia sartzeak **abeltzain** nomada bihurtu zituen 150 laborari-belaunaldiren ondorengoak. Iñaki Mendiguren

Brasilgo arara herri indigena galtzeko arriskuan dagoela salatu du Survival Internationalek; zura ustiatzen duten multinazionalek eta **abeltzain** handiek lur eta baliabide natural barik utzi dute. Berria - Gaiak

Udalak ulertzen omen du hiria ezin dela geratu zerbitzu hori gabe, kaltetuak **abeltzain** txikiak direlako. Berria - Harian

Bertako **abeltzainak** eta lurjabe txikiak beren ustiapenen etorkizunagatik kezkatuta daude. Berria - Euskal Herria

Herrialde berde hartan, ekialdetik ailegatutako marinelak nekazari eta **abeltzain** bilakatu ziren, eta 450 urtez Europako iparraldeko herrialdeen antzeko gizarte bat osatu zuten Ameriketako ateetan bertan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nekazari eta **abeltzain** intentsiboak aise konturatuko dira: beren ustiategiak humanizatzeko inbertsioa merkeagoa izango da merkatu intentsiboan segitzeko egin beharko luketen ahalegina baino. Edorta Agirre

Daily Graphic egunkariak zioenez, Dudzomeko eskualdeko eremu gerizatu batean orain dela zenbait denbora baimenik gabe jarri ziren **abeltzain** ibiltari multzoa eta euren abereak ontzira igotzera behartu zituen Poliziak, eskualde hartako agintariek hala manaturik. Berria - Mundua

Mercosurren nekazari eta **abeltzain** ekoizle handiak daude; Argentina, Brasil, Uruguay eta ParaguayGizon horiek, artzain eta **abeltzain** direnez, beren ardi, behi eta zeukaten guztia ekarri dute. Berria - Ekonomia

Txakurrak **abeltzain** utzi. Pablo Sastre

Patatak landatu ditu UAGAk (Arabako Nekazari eta **Abeltzainen** Batasuna) Betolazan. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo gisa)

Darfurreko ipar zein erdialdean basamortuak are eremu zabalagoa hartu izanak urarekiko eta bazkalekuekiko istiluak piztu zituen nekazarien eta nomada **abeltzainen** artean. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
abeltzain bat (3); **abeltzain batzuk** (3); **eta abeltzain** (9); **nekazari eta abeltzain** (5)

---

abeltzaintza *(ETCn **2.611** agerraldi; orobat **abelzaintza** g.er.)* **1** *iz* abeltzainaren lanbidea.

Liburuak askotariko gaiei buruzkoak ziren: basozaintza, **abeltzaintza**, zerri-hazkuntza, baratzezaintza. Jose Morales

Jarduera ekonomiko nagusia: nekazaritza eta **abeltzaintza**. Bernardo Atxaga

Emakume barik ez baitago nekazaritzarik, ez **abeltzaintzarik**, ezta lehen sektorerik ere. Berria - Euskal Herria

Behien **abeltzaintza**, ordea, arrakasta itzela izaten hasi zen. Iban Zaldua

Amazonas ibaiaren arroa aro berri batean sartu da; **abeltzaintzak** eragiten dituen irabaziek eta soja ekoizpenak oihanaren desagertzea dakarte, eta errepide sarea eskualdearen bihotzeraino sartzea. Berria - Gaiak

Antzinatik **abeltzaintzan** aritutako familia batean jaioa zenez, umetan denboraren zati handi bat etxaldeetan emana zuelako. Xabier Olarra

Templek urratu zuen halako arrapalak diseinatzeko bidea, eta pasabide biradunen sortzaileari atxikia da haren izena **abeltzaintzaren** arloan. Xabier Olarra

Abeltzaintzaren produkzioak behera egin du Nafarroan, lehortearen eraginez. Berria - Ekonomia

Richard Thomas *BirdLife International* talde kontserbazionistaren eledunak uste duenez, **abeltzaintza** intentsiboaren bidez ari da zabaltzen gaitza. Berria - Gaiak

Hartza dagoen tokian animaliak izateagatik 3.000 eta 9.000 euro arteko kopurua jasotzen dute **abeltzaintza** estentsiboa egiten dutenek. Berria - Euskal Herria

Rio Grande do Suleko eremuan jaio zen, nekazaritza eta **abeltzaintza** lanak nagusi diren lautadan. Berria - Kirola

Nafarroan 700 bat **abeltzaintza** ustiapen daude. Berria - Harian

Kezkatuta geunden gaitza Ingalaterran agertu zenean, eta ikusten genuen gaixotasuna **abeltzaintza** eredu intentsifikatu batetik zetorrela. Patxi Iturritegi

Herenegun gaueko bederatzi eta erdiak aldera, 127 zekorrek ihes egin zuten Nafarroako Erriberako Cadreita herrian, Jimenez-Cambra **abeltzaintza** etxetik. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak onartu duen foru dekretuari esker, **abeltzaintza** eta nekazaritza alorretara 4 milioi euro zuzendu dira. Berria - Ekonomia

Asian, **abeltzaintza** sistemak bultzatuta eta salerosketaren bidez zabaldu da. Berria - Harian

Lasaitasun mezu hori helarazi du Jose Antonio Ocio Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta **Abeltzaintza** Saileko zuzendariak. Berria - Harian

Sektorearen gainbehera aztertzeko bildu ziren atzo Javier Etxarte Nafarroako Nekazaritza, **Abeltzaintza** eta Elikadura sailburua eta UAGN nekazarien sindikatuko ordezkariak. Berria - Ekonomia

Genetikoki eraldatutako organismorik gabeko nekazaritza eta **abeltzaintza** ustiategiak identifikatzeko kanpaina abian jarri du EHNEk. Berria - Euskal Herria

Nekazaritza eta **abeltzaintza** arloko estatu enpresen bidez. Berria - Mundua

2 *abeltzaintza ekologiko* *(corpusean ez dago; ETCn **73** agerraldi)*

Hain zuzen, **abeltzaintza ekologikoaren** inguruko proiektu pilotu bat abian jarria dugu. ETC-prentsa

Horregatik bakarrik, nekazaritza eta **abeltzaintza ekologikotik** datozen produktuak jende gehiagok kontsumituko lituzke, baina ekoizpena ez da behar bezala iristen dendetara, eta kontsumitzaileak, beraz, ez du behar bezala ezagutzen. ETC-prentsa

Nekazaritza eta **abeltzaintza ekologikoko** produktuak saltzen dira bertan. ETC-prentsa

% 60 kalitate oneko bazka eta %40 alea izan behar dela hitzartzen du **abeltzaintza ekologikoko** araudiak, errumenak ongi funtzionatu dezan. ETC-prentsa

Abeltzaintza ekologikoaren oinarrietako bat da elikadura. ETC-prentsa

Hala nola landa-eremu horietako ekonomia, nekazaritza eta **abeltzaintza ekologikoa**, jatorri izendapeneko lurrak, landa turismoa, Done Jakue bidea, bide berdeak; baina, batez ere, jende askorentzat balio afektibo izugarria duten eremu natural zoragarriak. ETC-prentsa

Bertoko **abeltzaintza ekologikoa** sustatzeko asmoz, 2002. urtean Biolurrek eta EHNEk antolatuta, sei baserritarrek Austriara eta Suitzara bidaia egin genuen. ETC-prentsa

Abeltzaintza ekologikoaren aldeko apustua egiten dutenek ere arazo handiak dituzte. ETC-prentsa

Taula batzuen bidez, **abeltzaintza ekologikoak** hektareako eta urteko eduki beharko liratekeen buru kopurua erregulatzen du, animalia moten arabera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gipuzkoako EHNEk 2002 inguruan jarri zuen martxan **abeltzaintza ekologikoa** garatzeko egitasmo pilotua. ETC-literatura, saiakera

3 *abeltzaintza intentsibo*

Richard Thomas BirdLife International talde kontserbazionistaren eledunak uste duenez, **abeltzaintza intentsiboaren** bidez ari da zabaltzen gaitza. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abeltzaintza eta elikadura** (5); **nekazaritza eta abeltzaintza** (9)

---

abeltzantza ik **abeltzaintza**.

---

abelzain ik **abeltzain**.

---

abelzaintza ik **abeltzaintza**.

---

abemaria **1** *iz* hitz horrekin hasten den kristau otoitza. ik **agurmaria**.

Errezaiozu **Abemaria** bat Amabirjinari eta ziur nago ez dela ezer gertatuko gaurtik biharra. Juan Garzia

Bekatu larrien zama astuna ez zen kitatzen **abemarien** eta paternosterren errezoekin soilik aita Franciscoren ustetan; bekatu larriak behar bezala kitatzeko **abemariak** errezatzeaz eta paternosterrak murmurikatzeaz gain- probetxuzko penitentzia egin behar zen mundu honetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 *abemaritako* *izlag*

Ostegun ta Ostiral santuz, ta larunbatez ere bai, **Abemaritako** erretiro ordua aurreratu egiten zen, denak etxera garaiz biltzeko. Pello Zabala

Rosa aldean **Abemaritako** kanpaiak jotzen zituztenerako landak hutsik ziren, eta afaritarako sua piztuta egon ohi zen beheko suaren harlauza gainean. Josu Zabaleta

---

abemariaka *adlag* abemariak esaka.

Nire gaitzaren makurrenean, sukarrak deusetaz ohartzera uzten ez zidalakoan, **abemariaka** abiatzen zen nire ondoan, Jainkoaren amaren medaila eskuan zerabilela. Aingeru Epaltza

---

abenda *iz* aberria.

Sabinek gainera, esentzi bila, aba, **abenda**, aberri, abizen bezalako neologismoak sortu zituen, euskal usarioa hankaz gora boteaz. Patziku Perurena

---

abendo ik **abendu**.

---

abendu *(ETCn **48.892** agerraldi; orobat **abendo** g.er.)* **1** *iz* urtearen hamabigarren eta azken hila, hogeita hamaika egun dituena.

Abendu osoa sasoian jartzen emango dut. Berria - Kirola

Haatik, **abendu** arte jarraituko duela iragarria du. Berria - Euskal Herria

Datorren **abendu** edo urtarrilerako aurreikusita dauden bozak arte izango da lehen ministro Alaui. Berria - Mundua

Abendua hilabete egokia da, ardi esnearen prezioaren eztabaidatzeko eta negoziaketa nekeen bermatzeko, sasoia datorkienean, laborariek hazten dituzten "borroken" hedatzeko, hots! Itxaro Borda

Ez ziren iota batez ere aitzinatuak, greziarrek esango zutenez; eta **abenduan** sartuxeak ziren, dagoeneko. Jon Muñoz

Abendu bete-betean geunden. Joseba Urteaga

Abenduaren hasiera izan arren bero egiten zuen. Harkaitz Cano

1944ko **abenduan** Szálasiren gobernuak Alemaniara ihes egin zuen. Urtzi Urrutikoetxea

Abenduko lehen asteetan elurra gogor bota zuen, eta Gabonak baino lehen hotz handia egin zuen. Koro Navarro

Baina nekez aterako ziren onddoak **abenduan**, urtea sasoirako oso beroa izan arren, mendi kaskoek ordurako ohi zuten elur-izara falta izan arren. Jon Alonso

Orduan, orenak eta egunak luze baitzitzaizkion, postetxeak **abenduan** zabaltzen duen almanakaren urte guztiko izen zerrendari maiz begiratzen zionøø. Daniel Landart

Irudipena nuen juduei eguzkia bera ere ukatu egin zitzaiela: **abendu** bateko gau hotz batean zihoazen kalean zehar. Felipe Juaristi

Abenduan zehar, Wilson eta Juantxu ETAkideak gose greba egiten egonak ziren, hantxe, Trafalgar Square-n. Joseba Zulaika

Abenduan jakin genuen askatasuna sinatuta atera zela, eta zain jarri ginen, etxera noiz iritsiko. Jokin Urain

Iragan **abendukoak** ziren argazkiak eta, hara apirilean Gudarin argitaraturik. Edorta Jimenez

Santakrutzek berak ere, jakin genuenez, berehala ulertu bide zuen ez zela 1873ko **abendu** hura mementorik aproposena halako matxinada zakar bat burutzeko. Txillardegi

Sasoin idorra **abendutik** maiatza arte. Ramuntxo Etxeberri

Igande hura, berriz, **abenduko** lehena izango zen. Joan Mari Irigoien

"1945ean beste hemeretzi idatzi nituen eta Fontaine aldizkarian argitaratu ziren **abenduan**. Xabier Olarra

Woodek bere kemen maniako hura berreskuratu zuen, eta ohi bezain gogor lan egin zuen bere taldearekin **abendura** arte iraun zuen lanbro hotz hartan. Iñaki Mendiguren

Hori guztia ondo frogatuta dago, aldizkari prestigioso batean, lehengo urteko **abenduan**. Unai Elorriaga

1970eko **abendu** hartan ni Londresen nintzen. Joseba Zulaika

Iritsi zen **abendua**, nire dimisioko hila. Joxan Elosegi

Hala ere, konfiantzazko laguna izan nuen **abendutik** amaieraraino. Joseba Urteaga

Venezuela ez da turismoaren gailurrean dagoen lekua, batez ere **abenduko** uholdeen ostean. Pako Aristi

Abenduko bigarren astean McGonagall andereñoa, ohi bezala, Eguberrietan ikastetxean geratuko zirenen izenak hartzen hasi zen. Iñaki Mendiguren

Abenduaren erdiko goiz batean, esnatu zirenean, Hogwarts metro beteko elurraz estalita aurkitu zuten. Iñaki Mendiguren

Erreka horretan geratu ziren gaua pasatzeko, **abendu** hotz batean, Big Foot izeneko buruzagia, oso gaixorik eta hil zorian pneumoniak joa, eta bere herria, zurien armadak inguraturik. Pello Salaburu

Frantziako hegoaldeko zenbait aldetan, **abenduaren** lehen egunean, San Joan Kaleko gazte jendea hiritik irten makilaz armatua, eta aurrena txepetxa harrapatzen zuena errege izendatzen zuten. Patziku Perurena

-Aitak errieta egingo dit **abenduko** kontzertua baino lehenago erakusteagatik, baina... -eta airean uzten du esaldia. Anjel Lertxundi

Margot **abenduan** etorri zen Holandara, eta ni otsailean, eta mahai gainean jarri ninduten Margotentzako oparien artean. Josu Zabaleta

Abenduko gaua hotza zen, krudela. Josu Zabaleta

Abiatuak dira azterketak eta gogoetak Elkarri taldearen baitan, abiatuak berrikitan Aralar aldean, hala nola abiatuak ziren sakon eta baikor, 1998-1999ko **abendu** arteko epean, Lizarra-Garazi mugimenduaren lerroetan. Itxaro Borda

Abenduak pozik jartzen zuen Marcos, urtero. "Jakina" pentsatzen zuen don Rodrigok "Argentinan, Hego Afrikan eta batez ere Australian uda dela gogoratzen duelako egongo da pozik". Unai Elorriaga

Abenduko baraualdirako txori-lumak izango ditut. Jose Morales

Beste negu bat iritsi zen, ordea, eta oraingo aldian zazpi ziren desagerturiko indioilarrak, azarotik **abendura**. Juan Garzia

2 (-en atzizkiarekin, datetan)

Sari banaketa **abenduaren** 1ean izango da, Donostian, baina **abenduaren** 3ko Euskararen Nazioarteko Egunarekin lotu nahian, **abenduaren** 2an, Gasteizen ekitaldia egingo dute. Berria - Euskal Herria

Garaipen handia izan da hau, data historikoa Ondarretako kartzelan, Aitzolen zainekoek gabonila esaten dioten **abenduaren** zazpia apuntatu nahi baduzu, 1944 honetan. Koldo Izagirre

Lehenengo zatia Frantziskoren jaiotzatik 1223ko **abenduaren** 25era doa eta zabal dihardu Frantziskoren konbertsioaz eta anaiartearen lehenengo garaiez. Askoren artean

1791ko **abenduaren** 6an hil zen Mozart. Imanol Zurutuza

Ilun hotza New Yorken, **abenduaren** 28an. Gotzon Garate

Lehia 1923ko **abenduaren** 16an zabaldu, eta bi hilabete luze iraun zuen, harik eta 1924ko otsailaren 29ko zenbakian irabazle nor zen aditzera eman zuen arte. Iñaki Arranz

Etzi, **abenduaren** hirua, euskararen eguna da, ofizialki, iaztik Autonomia Erkidegoan. Joxerra Garzia

Ondoren aurkezten den zerrendan, 1997ko **abenduaren** 14an Donostiako Belodromoan 8 bertsolari finalistek kantatu behar izan zuten gaien laburpena egiten da, gaiak ematerakoan dituen gainerako azalpenetatik soildurik: J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Abenduaren 8an, Ama Birjina Sortzez Garbiaren egunez ospatzen zuten Irratiaren eguna Xorroxindarrek. Pello Zabala

3 (-k atzizkiarekin, datetan, aposizioan)

Arantzamendi eta Aranburu baserriak ikustera joan naiz gaur, **abenduak** 25, Eguberri eguna. Xabier Mendiguren Elizegi

Asteartean, **abenduak** 7, Battistiren aldeko kolektibo batek militante ohiaren gutuna jaso zuen. Berria - Mundua

Gaur, **abenduak** 29, Bioaniztasunaren Nazioarteko Eguna da, eta Haritzalde Naturzaleen Elkarteak bi ekitaldi egingo ditu. Berria - Euskal Herria

Euskadik jokatzen duen egun bera (**abenduak** 29) hautatu du Nafarroako Federazioak partidarako . Berria - Kirola

4 (-k atzizkiarekin, datetan)

1923ko **abenduak** 22 zituen. Edorta Jimenez

Hartan ari zela agortu zitzaion bizitza, 1791ko **abenduak** 6 zituela. Imanol Zurutuza

(Ik. **Abenduak** 25ekoa eta 31koa). Pello Zabala

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta 1929ko **abendu** hondar hartan, kazetari izateko behar diren baldintzak ematen ere ausartzen da: "Aurreneko baldintza: lotsagaldu akasgabea izatea. Iñigo Aranbarri

Abendu erdialdeko igande lainotu eta goibel bat zen. Oskar Arana

Guztiarekin, **abendu** bukaeran "Aste Zaharra" izaten zen: morroi eta neskameen urteko oporraldi bakarra; orduan ezkondu, orduan ziren nahi zuten hartara joateko libre. Pablo Sastre

Lehen euri tantak jaurti zituen **abendu** amaierako arratsaldeak, komisaldegitik gazte luze bat irten zenean. Unai Iturriaga

Abendu hasierako gau batean, landa eta herria baretasun oso-osoan zetzaten, izotz gaueko baretasuna, airea urdin gardena denean, eta ilargiaren argitara mendiak tontorrik tontor bereizten direnekoa. Josu Zabaleta

Abendu hastapenean horko ikaslek manifestaldi bat egin zuten formakuntza horren hesteko erabakiaren kontra, eta hautetsiek protesta hori gutunez lauzkatu zuten. Herria

Joan den **abendu** erditsuaz geroztik Baiona Euskal Herriko Merkatal ganbarak harrera zerbitzuak oro beherean ditu, sartu eta berehala. Herria

Etxeko lehen bederatzi partidak irabazi zituzten gorritxoek denboraldi honetan, baina **abendu** amaieran futbol zelaiari izena aldatu ziotenetik ez dute zaleek garaipen gehiago ospatu, herenegun arte Berria - Kirola

Bai, **abendu** erdialdean hasi nintzen serio samar entrenatzen, eta 9.000 kilometro egin ditut dagoeneko Berria - Kirola

Abendu bukaeran Zaldibarko lau t'erdiko Olazar torneoa irabazi zuen Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

abendu bukaeran (7); **abendua arte** (17); **abendua baino** (28); **abendua baino lehen** (27); **abendua bitartean** (13); **abenduan amaitu** (7); **abenduan atxilotu** (6); **abenduan baino** (8); **abenduan bukatu** (8); **abenduan egin** (12); **abenduan egindako** (8); **abenduan egingo** (7); **abenduan ere** (5); **abenduan eta** (10); **abenduan hasi** (7); **abenduan onartu** (8); **abenduan onartutako** (5); **abenduan sinatu** (5); **abenduaren amaieran** (7); **abenduaren azken** (5); **abenduaren hasieran** (21); **abenduaren hogeita** (5); **abenduaz geroztik** (16); **abenduko egun** (9); **abenduko lehen** (11); **abendura arte** (19); **abendura bitartean** (15); **abendutik aurrera** (5); **autonomikoa abenduak** (5); **azaroa eta abendua** (5); **azaroan eta abenduan** (14); **bereko abenduaren** (5); **da abenduan** (8); **da abenduaren** (15); **datorren abenduaren** (17); **den abenduan** (55); **den abenduaren** (45); **den abenduko** (7); **den urteko abenduaren** (6); **du abenduaren** (16); **dute abenduaren** (7); **eta abendu** (5); **eta abendua** (23); **eta abendua bitartean** (9); **eta abenduan** (46); **eta abenduaren** (51); **eta abenduko** (8); **eta abendura** (6); **finala abenduaren** (5); **heldu den abenduaren** (14); **iazko abenduan** (72); **iazko abenduaren** (38); **iazko abendutik** (5); **iragan abenduan** (31); **iragan abenduaren** (20); **jardunaldia abenduak** (5); **joan den abenduan** (48); **joan den abenduaren** (27); **joan den abenduko** (7); **joan zen abenduan** (16); **joan zen abenduaren** (12); **ko abenduaren** (32); **pasa den abenduan** (5); **urritik abendura** (7); **urte bereko abenduaren** (5); **urteko abenduan** (26); **urteko abenduaren** (26); **zen abenduan** (24); **zen abenduaren** (14); **zuen abenduan** (13); **zuen abenduaren** (9); **zuen iazko abenduan** (7); **zuen iragan abenduan** (5); **zuten abenduan** (7); **zuten abenduaren** (5)

---

abendualdi *iz* erlijio katolikoaz mintzatuz, abendu inguruko ziko liturgikoa.

San Damiango ahizpek aldi oro egin behar dute barau, ez bakarrik **abendualdian** edo garizuman; baina ez da esaten egunero egin behar dutenik, igandeak eta beste jaiak salbuesten baitira, Pragako Inesi eginiko 3. gutunean adierazten den bezala. Askoren artean

---

abenida *(ETCn **153** agerraldi; cf **etorbide** **6.435** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **etorbide** eta **hiribide** agertzen dira)* **1** *iz* etorbidea, hiribidea.

Hurrena, kale kantoian, bere espaloia utzi gabe, Ezkurdi Plazaraino luzatzen zen **Abenida** hartu zuen, eguzkiaren presentzia salatzen zuten argi-itzalak gaindituz. Pedro Alberdi

Abenida ibili eta kale kantoira iritsirik, arkupeetara bideratu zuen pausoa. Pedro Alberdi

E.F.H., berrogei urtekoa, atzo goizeko 10.30etan, **Abenida** eta San Donato Kaleko bidegurutzean, auto batek harrapatu zuen. Karlos Linazasoro

Bai, jauna, auto batek harrapatu zuen **Abenidan** eta seko utzi zuen. Karlos Linazasoro

Berehala eskatzen zaio Cortazar arkitektoari Bulebarretik **Abenidara** doan Zabaldia prestatzeko ardura. Askoren artean

Banku batean eserita gaude, **Abenidaren** erdialdean dagoen parketxo batean. Pako Aristi

Hortxe dago, **Abenidaren** amaieran. Pako Aristi

Azkarrago ibiltzearren, espaloia utzi, eta **Abenidako** erdigunera atera zen. Pedro Alberdi

Hamar eta erdiak **Abenidako** erloju erraldoian, euri fin desatsegina emeki--emeki kaleak bustiz. Karlos Linazasoro

Josu R lagun-taldearen buruan jarri, eta **Abenidan** aurrera jo zuen. Pedro Alberdi

Ederki zekien emazteak lagunen inbidia eragiteko paseatzen zuela bera **abenidan** gora eta behera, trofeo baten moduan. Jokin Muñoz

Tabiratar guztiek zekiten ordu hartan **Abenidatik** baxoerdiak edanez ibiltzeak zer traba zuen. Pedro Alberdi

Circa Tabac (Watts Streeteko 32.ean, seigarren **abenidatik** gertu) izena du lekuak eta badu Casablancako Ricken klub haren antzik. Harkaitz Cano

Lehen **abenidaz** haratago daude, A, B, C eta D **abenidak**. Harkaitz Cano

Helenek ospitalean pasatzen zuen denborarik gehiena, eta Mary Ann eta biok goizeko bederatziak aldera elkartzen ginen Lombard **abenidako** bere hotelean. Bernardo Atxaga

Magenta **abenidaren** saihetseko karrika hertsietarik banindoan, oinak arin baina hatsa gero eta laburrago. Itxaro Borda

Maurice Thorez **abenidako** larunbat goizeko merkatuan erosi mihimenezko sarea erabiltzen zuen horretarako. Itxaro Borda

Bizi ere, Euzkadi'ko Jaurlaritzaren bulegoak zeudeneko eraikin berean bizi zen; Bosgarren **Abenidako** 30 zenbakiko 15F apartamenduan. Edorta Jimenez

Aurrean, polizia furgoi batek **Abenidaren** kale-ahoa zeharkatu zuen. Pedro Alberdi

Gozamen handia izan delako hemengo **abenidetan** ibiltzea, Michigan itsas itxurako aintzira bazterrean paseatzea, munduko etxeorratzik altuenera igotzea, espresso bat bakarrean hartzea, Blue Chicagon musika zuzenean entzutea. Patxi Zubizarreta

"Autobusean egon izan bazina", pentsatu nuen nik, eta gaur ere horixe pentsatu dut New Yorkeko **abenidetan** barrena, bi pisuko autobus gorri batean ezin barregarriago genbiltzala. Patxi Zubizarreta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Atzean utzi ditugu kale eta **abenida** zabalak, eta neoiaren argi irrealetik alde zaharreko farolen argi samurragora sartu gara. Pako Aristi

Bertan, kale edota **abenida** dotoreetatik nagi paseatu bitartean, nirekin gurutzatzen zen jendearen jarrera zaintzeko harrokerian jausi nintzen. Bernardo Atxaga

Doi doia egin ditzagun behako batzu Massena plaza ederrari Nizen, Ihauteria famatuak hor ospatzen baitituzte eta, berriz ere, aberatsen hotel eta **abenida** ospetsueri. Herria

Bosgarren **abenidatik** mendebalderantz dauden kaleak West izanen dira eta ekialderantz daudenak berriz, East. Harkaitz Cano

Manhattanen, 5. **abenida** da erdigunea, eta hortik aurrera, zenbat eta urrunago, erdigunetik urrutiago zaudela esan daiteke, nolabait adieraztearren. Harkaitz Cano

18. kalean nago, bosgarren eta seigarren **abeniden** artean, eta hor aurreko horrek beharko luke izan Prusiarraren ezkaratza. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abenidan aurrera (3); **abenidan gora** (3); **eta abenida** (3)

---

abeniko *iz* hitzarmena, egiunea, konponketa.

Merkataritzak herri-mota desberdinak sorrarazten ditu herrialdean bertan, hainbat eta hainbat **abeniko**, ondasun-klase eta eskuratzeko modu. Iñaki Iñurrieta

Familia bihar biltzekoa da hartzekodunekin **abeniko** bat egitera entseiatzeko. Jon Muñoz

Merkataritzatik sortzen diren **abenikoetan**, legeak kasu gehiago egin behar dio komenientzia publikoari hiritar baten libertateari baino. Iñaki Iñurrieta

Gure **abeniko** isil horren azpian ez du inork ere bere izena jarri, baina guztiek errespetatzen dugu, hor egiten baitugu denek ohorezko abaro. Pello Salaburu

Lege batek bere ondorioa izan behar du, eta ezin da onartu lege bat **abeniko** partikularrez indargabetzea. Iñaki Iñurrieta

Berriz diotsut, bai are sarriago errepikatu ere neure artean, proposatzen didazun **abenikoa** zinetan da ezinezkoa. Jon Muñoz

Izan ere, morfologiak eta sintaxiak osatu dute, **abenikoz**, gramatika, eta alde batera utzi da lexikologia edo hitzen zientzia dena. Isabel Arrigain

---

abenitu, abeni(tu), abenitzen da *ad* hitzartu, konpondu.

osaba Joanikot eta ama elkarrenganat bildu, adiskidetu eta biak elkarrekin **abenitu** ondoren. Joan Mari Irigoien

Elkar **abeniturik** egin ordez kalkuluen arabera egiten diren eztei hobarizko deitu horiek. Jon Muñoz

Sinets zenezake ezen haren eta nire artean herenegun gertatu zenaren ondoren, atzo goizean adiskidetsu bereizi ginen ondoren; bart gauean hara nahi izan nuelarik itzuli, harekin **abenitua** nuen bezala, haren atea barnetik hertsia kausitu nuela? Jon Muñoz

---

abenka *iz* itsasontzi batean, mastan gora igotzeko sokazko eskala; itsasontzi batean, mastan gora igotzeko sokazko eskala.

Ontziburuak agintzen zizkidan askotariko langintzetara egokitzen; bela handietako olanak josteko usadio hartzen, zirol edo zapatarien pare, eta mastak, **abenkak** , aparailuak eta enparauak banan-banan ezagutzen, alegia, egunik egun nire burua marinelago egiten. Edorta Jimenez

Stede Bonnet maiorrak ezin izan zion gehiago eutsi; eta, hamar kanoi pezako txalupa zahar bat erosirik, pirateriari zihoakion guztiaz hornitu zuen, hala nola ganibetak, arkabuzak, **abenkak** , xaflak, kakoak, aizkorak, Bibliak, ron upelak, argiontziak, aurpegia belzteko betuna, bikea, merkatari aberatsen hatzen artean irazekitzeko metxak eta elemenia bandera beltz beren burezur zuri eta izterrezur gurutzatuekin. Juan Garzia

---

abentura *(ETCn **9.079** agerraldi)* **1** *iz* gertaera bitxia edo arriskutsua.

Jauna, **abentura** definitzea badagoela pentsatu dut: ohiz kanpoko gertaera bat, nahitaez apartekoa izan gabe. Monika Etxebarria

Gertaera hutsalena ere **abentura** bilaka dadin, beharrezkoa eta aski da hura kontatzea. Monika Etxebarria

Norarena gertatu arte ez nuen Laurarena ulertu, **abentura** bizitzen ari dena ez da konturatzen zein erraza den kanpotik dena ikustea. Mikel Hernandez Abaitua

Flaubert-en liburuan erabat desagertu da intriga, desagertu da **abentura** : ez da istoriorik kontatzen. Juan Garzia

Sutondoan ematen zituzten orduak, berriketan eta kontu-kontari, hainbat pasadizo eta **abentura** kontatuz. Koro Navarro

"Badut nik ere berririk kontatzeko", erran zuen; eta berehala nire **abentura** kontatu zuen, kontalari zuhur hari zegokion zehaztasunaz. orain dela hamar urte-edo hementxe gertatu zitzaidan **abentura** bat kontatuko dizut. Jon Muñoz

Samurturik nauka Danceny izateak **abentura** honetako heroia. Jon Muñoz

Zer **abentura** , zer drama ezkutatzen zuen oroigarri hark? Josu Zabaleta

Abenturak liburuetan daude. Monika Etxebarria

Aski zintzoki kontatu dit bere **abentura** , eta batez ere azken gertakaria. Jon Muñoz

Abenturarik gabeko istorio bat. Irene Aldasoro

Jakinminak nago ordea nola kontatuko diezun **abenturaren** bukaera. Jon Muñoz

Lehenengo urtean *au-pair* abiatu nintzen, **abenturara** , independentzia bila eta behin hizkuntza ikasi nuenean, unibertsitatean sartu nintzen filosofia ikasteko. Ana Urkiza

- **Abenturarako** senik ba al zuen? Jon Muñoz

Ingalaterrako **abenturazko** istorioen tradiziora egin zuen jauzi. Juan Garzia

Laurok istorio bana hasi behar genuen, **abenturazkoa** , eta gure protagonistari arazo bat sortu. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Abentura militar horrek ez zuen amaiera onik izan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Abentura politiko zein sentimentalei hitz arranditsuz ekiten zien, baina ezkutuko armaz ondo hornituta, aldez aurretik asmatutako gezurrak babesgarri eta etsaientzat galgarri gerta zitezkeen eskutitzak sakeletan. Ander Irizar

On da, bertzalde, **abentura** handietara bideratu dugun norbait urrats handietara ohitzea. Jon Muñoz

Ezkutatuta egon behar hau **abentura** bat iruditzen zait, **abentura** arriskutsu, erromantiko, interesgarria. Josu Zabaleta

Nola ez duzu jakin haren **abentura** ospetsua, bereiziezinak bereizi zituena? Jon Muñoz

Haren **abentura** hirukoitzaren eskandaluak, begiak harengan ezarri baititu, eman dio ordu arte eskas zitzaion fidantzia, eta bihurtu du zinez gizon beldurgarri. Jon Muñoz

Begien bistakoa zen pozaren pozez zegoela, **abentura** arriskugarri batean sartzen ari zelakoan. Karlos Zabala

Neskatxa ttipi hori irriegilea da; eta, haren alaitasunari bide emateko, bururatu zitzaidan burutik pasatzen zitzaizkidan **abentura** eskandalugarriak oro, gure pausaldietan, hari kontatzea. Jon Muñoz

Abentura irrigarri horretan badituzula hamabortz egun baino gehiago emanak. Jon Muñoz

Konbentzituta zegoen jadanik Corto: ez zuen Rasputin bakarrik utziko **abentura** ergel hartan. Iban Zaldua

Badakik ez ditudala **abentura** bakartiak maite. Iban Zaldua

Aurrez inoiz saiatu gabeko **abentura** gogo-pizgarria zen hura, eta noblea, gainera. Juan Garzia

Bat-bateko **abentura** txiki bat. Oskar Arana

Andre Pepitak eragin zuen zorigaiztoko **abentura** . Koro Navarro

Benetako **abenturak** , ordea, pentsatzen nuen, ez zaizkio etxean geratzen denari gertatzen: kanpoan bilatu behar dira. Irene Aldasoro

Nola baitaramazu bizimolde zuhur eta landara bazterreratua, eskandaluzko **abentura** horiek ez dira zuganaino heltzen. Jon Muñoz

Gero dirua biltzen hasi ziren, diru-bilketan, ni bidaia batera igorri eta mundua ikus nezan, gero nik haiei kontatu ahal izateko atzerriko emakumeekin izandako plazerezko eta amodiozko **abentura** kitzikagarriak. Fernando Rey

Gerra, ordea, ez da inondik ere egiazko **abentura** bat, **abentura** ordezko bat baizik ez da. Josu Zabaleta

Nik zegokien jaiduraz entzuten nituen istorio zaharrok, apika ez hain miragarriak berez nola baitzen miragarri neure odolak asmatuak izatea eta inperio urrun bateko gizon batek hala niri bihurtzea, **abentura** etsi baten harian, sartaldeko uharte batean. Juan Garzia

Zein ederra den izadia, zein onak diren inguruan ditudanak, zein interesgarri eta jostagarria den **abentura** hau. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urtero, Dudleyren urtebetetzekoan, gurasoek Dudley eta lagun bat egun-pasa eramaten zituzten, **abentura** -parke, hanburgesategi edo zinemara. Iñaki Mendiguren

Bi edo hiru egun ematen zituen ganbaran zain, Federicoren sua noiz apalduko, ibili luzeko itsasontzien **abentura** liburuak hartuta, bere buruarekin hizketan Mikel Strogoff bezala edo kanpai joaldi bat egiten denbora pasatzeko. Jose Morales

Felix Vaqueriza zuen izena irakasleak, eta haren bizitzak nik ordura arte ezagututako beste inorenak baino **abentura** kutsu handiagoa zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta zein urrun azpikeria zantar haiek nire **abentura** -amets zirraragarrietatik? Alberto Ladron Arana

Abentura sentimendu hau, ez dago agian munduan hori baino interes handiagorik duenik niretzat. Monika Etxebarria

Abentura sentimendua denboraren itzulezintasunarena izanen litzateke, besterik ez. Monika Etxebarria

-Ze **abentura** klase? -galdetu zuen, arduraz. Julen Gabiria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aitonak ez zuen txintik esaten gerra garaiari buruz, baina Madrileko bere estudiante- **abenturez** , edo amona ezagutu zuenekoaz, behin eta berriro hitz egiten zigun. Iban Zaldua

Japoniak Mukden-en abiarazi zuen, 1931ko irailaren 18tik 19rako gauean, bere eraso- **abentura** handia, V-J egunean bukatu zena, 1945ean. Iñaki Mendiguren

4 maitasun harreman laburra eta informala.

Itxura oneko gizona zen eta ez zitzaidan inporta **abentura** bat izatea berarekin. Juan Martin Elexpuru

Nire xarmekin asperturik jaunak ni kalera bota baino lehen, beste **abentura** bat izan nuen; esperientzia bat hobeto esanda, ez zelako hain harrigarria ere izan; **abentura** izena eguneroko bizimodutik ateratzen gaituzten gertaerek merezi dute bakarrik. Juan Martin Elexpuru

5 irud/hed

Ez da harritu behar bidaiaz ari banaiz anitz, bidaiaz aritzea denboraz eta heriotzaz aritzea baita, biziaren **abenturaz** . Ana Urkiza

Hizkuntza bat eraikitzea berebiziko **abentura** da. Jon Muñoz

Baina esan nahi nuena zuan autore honek beti defendatu duela gehiago idazketaren **abentura** , **abenturaren** idazketa baino. Mikel Hernandez Abaitua

7 *abentura grafiko* *(corpusean ez dago; ETCn **92** agerraldi)*

Abentura grafikoa bideo-jokoen munduan fikzio interaktibo generoaren barnean dagoen eta 1980eko hamarkadan sortutako azpigenero bat da. ETC-entziklopedia

Abentura grafiko honetan fikzioa eta xehetasun guztiz historikoak nahasten dira. ETC-prentsa

Aliceren ibaiak dugu adibide, Delirium Studios enpresak aurkeztu berri duen **abentura grafikoa** , kontsola batean -Nintendoren WII U makinan- joka daitekeen euskarazko lehendabizikoa. ETC-prentsa

Grim Fandango LucasArts bideo-joko konpainiaren **abentura grafiko** bat da. ETC-entziklopedia

1991. urtean LucasArts LucasFilm Games ameriketako Estatu Batuak estatubatuar bideo-joko enpresak merkaturatu zuen fantasiazko **abentura grafiko** bat izan zen. ETC-entziklopedia

8 *abentura kirol* *(corpusean ez dago; ETCn **91** agerraldi)*

Abentura-kirola ingurune naturalean, jarduera fisikoaz gain, aisialdirako jarduera bizia dakarren edozein kirol bezala ezagutzen da. ETC-entziklopedia

Lehorrean, berriz, hirian goi mailako kultur eskaintza ziurtatzen duten erakustokiak, eta herrian **abentura kiroletarako** aproposak diren mendiak eta ibaiak, haien begirale eta egituraketa profesionalekin. ETC-literatura, saiakera

Gaurko egoeraren ezaugarria da aisialdiko modalitate berriak agertu direla -eskia, motorra, **abentura-kirolak** ... ETC-zientzia, zuzenbidea

Pribilejiatua naiz, **abentura kirola** praktikatzeko aukera dudalako. ETC-prentsa

Ezterenzubin, Errebert Larrandaburu mendizalearekin solasaldia izango da, Aurizberrin ESAITen bideoak eta hitzaldia, Eugin **abentura-kirolak** egingo dira, eta Uharte-Iruñean proba konbinatuak. ETC-prentsa

Bestetik, abentura asteburuak antolatu nahi dituzte, rappel, rafting eta bestelako **abentura kirolak** praktikatzeko irteerak. ETC-prentsa

Abentura kirolak oso modan daude, eta jendeak edozertarako ematen du izena. ETC-prentsa

Gainezka dauden errepideetan murgiltzen gara mila kilometro eginez; gorputza aski prestatuta ez izan arren, **abentura kiroletan** murgiltzen gara; zurruta eta jate desmasiak egiten ditugu... ETC-prentsa

Hori da azokako eskaintza nagusia: han eta hemengo naturgune eta **abentura kirolari** buruzko informazioa. ETC-prentsa

Eskalada eta tirolinea **abentura** kirolak egiteko (Senpere). ETC-prentsa

Riglosko mailoak dira Pirinioaurreko gune ezagunenetakoa, **abentura kiroletarako** paradisua. ETC-prentsa

Eskiaren eta mendiaren inguruko azokak beste **abentura kirolei** ireki dizkie ateak, eta erakusketa lekua eta gune ludikoa garbi bereizita egongo dira. ETC-prentsa

Udatik aurrera, **abentura kirolak** egiten dituzten kirolariei eta zuhurtziarik gabeko mendizaleei erreskatea ordainarazteko asmoa du Eusko Jaurlaritzak. ETC-prentsa

Abentura kiroletan ere erreskateak kobratzea babestu dute PP eta PSEk. ETC-prentsa

9 *abentura nobela*

Abentura nobela bat da, eta bi protagonista nagusi ditu: batetik, inguma, gaizkilea; eta, bestetik, Basajauna, zintzoa, besteei laguntzen diena. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abentura arriskutsu (7); **abentura arriskutsu batean** (3); **abentura bat** (37); **abentura bat da** (4); **abentura bat izan** (5); **abentura batean** (5); **abentura baten** (10); **abentura berri** (15); **abentura berri bat** (5); **abentura berri honetan** (4); **abentura berriak** (4); **abentura bila** (7); **abentura bizi** (4); **abentura da** (4); **abentura eder** (6); **abentura ederra** (3); **abentura ere** (3); **abentura eta** (21); **abentura ez** (3); **abentura handi** (7); **abentura handia** (4); **abentura haren** (4); **abentura hartan** (3); **abentura hau** (8); **abentura honek** (3); **abentura honetako** (3); **abentura honetan** (6); **abentura hori** (11); **abentura horiek** (4); **abentura horietako** (3); **abentura horrek** (3); **abentura horren** (4); **abentura horretan** (8); **abentura hura** (5); **abentura izan** (5); **abentura kontatu** (3); **abentura kontatzen** (6); **abentura kutsu** (4); **abentura txiki** (6); **abentura txiki bat** (3); **abentura zoragarriak** (3); **abenturak eta** (9); **abenturak eta** (9); **abenturak ez** (4); **abenturak ez** (4); **abenturak izan** (4); **abenturak izan** (4); **abenturak kontatu** (7); **abenturak kontatu** (7); **abenturak kontatzen** (8); **abenturak kontatzen** (8); **abenturaren berri** (4); **abenturari buruzko** (3); **abenturarik abentura** (3); **abenturarik abentura** (3); **abenturarik ez** (3); **abenturarik izan** (3); **abenturaz geroztik** (3); **abenturazko film** (3); **abenturazko nobela** (5); **abenturei buruz** (3); **baina abentura** (4); **baino abentura** (4); **bat abentura** (3); **bateko abentura** (3); **baten abentura** (3); **baten abenturak** (10); **baten abenturak** (10); **benetako abentura** (3); **benetako abenturak** (3); **benetako abenturak** (3); **bere abentura** (9); **bere abenturak** (12); **bere abenturak** (12); **bere abenturak kontatu** (3); **bere abenturak kontatu** (3); **bere abenturak kontatzen** (3); **bere abenturak kontatzen** (3); **bertze abentura** (3); **beste abentura** (3); **bidaiak eta abenturak** (3); **bidaiak eta abenturak** (3); **da abentura** (11); **da hurrengo abentura** (3); **den abentura** (5); **dut abentura** (3); **dute abentura** (4); **edo abentura** (3); **eta abentura** (26); **eta abenturak** (7); **eta abenturak** (7); **eta abenturaren** (5); **eta abenturazko** (4); **eta mila abentura** (3); **ez da abentura** (3); **garmendia pistolariaren abenturak** (3); **garmendia pistolariaren abenturak** (3); **gerra abentura** (3); **giza abentura** (3); **guizzardi guizzardiren abenturak** (3); **guizzardi guizzardiren abenturak** (3); **guizzardiren abenturak** (7); **guizzardiren abenturak** (7); **hainbeste abentura** (4); **haren abentura** (4); **hasitako abentura** (4); **hurrengo abentura** (3); **izandako abentura** (4); **mila abentura** (4); **nire abentura** (8); **niretzat abentura** (3); **nuen abentura** (4); **pistolariaren abenturak** (3); **zakarrontzietako abentura** (4); **zegoen abentura** (3); **zen abentura** (3); **zenbait abentura** (3); **zer abentura** (4); **zorigaiztoko abentura** (3); **zuen abentura** (3)

---

abenturakide *iz* abentura bateko kidea.

Adiskide gintuan, ez jolaskide, **abenturakide** , armadakide soil. Xabier Olarra

Deportazioaren berri ukan zutenetik gauzak oro hain laster gertatu ziren non ez baitzuen Joanttoren **abenturakide** izan behar zuenentz gogoetatzeko astirik ere ukan. Elena Touyarou

-Mesedez, ez nazazu zure **abenturakide** egin. Koro Navarro

---

abenturatsu *izond* abenturaz betea.

Lanbide askotan ibilia zen bere bizitzan, denak **abenturatsuak** edo behinik behin zelebrezkoak, eta hirurogeita hamar urterekin esperimentatzeko grina bizi, kezkagarri bat gordetzen zuen artean. Juan Garzia

---

abenturatu ik **menturatu**.

---

abenturatxo *iz adkor* abentura xumea.

Gainera, elurrarekin ere bizi izan ditugu **abenturatxo** batzuk. Berria - Kultura

Gau batean, mojen egoitzan lo egin ezinik zegoela, berak ere bere **abenturatxoak** bizi izan zituela erabaki zuen, Maddalenek beste edota gehiago agian, eta hurrengoan denak kontatuko zizkiola. Joxemari Iturralde

Bere baldreskeria gorabehera, neska batzuk bereganatzen zituen Woodyk, bai eta bere **abenturatxo** sexualak izan ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Zuk usteko zenuen zure **abenturatxo** arin horietako bat izango zela, seguru, zure bekatutxo horietako beste bat. Oskar Arana

Oraingo agente berrien **abenturatxoekin** ez dago kolorerik... beno, bai, kolorea da dagoen aldea: exotikoagoa izango da, senegaldarra edo nigeriarra delako prostituta, Kamerungoa trafikantea [...]. Urtzi Urrutikoetxea

---

abenturazale *(ETCn **812** agerraldi)* *izond/iz* abenturen zalea dena; abenturen zalea den pertsona.

Mark Twain idazleak sorturiko Tom Sawyer haur **abenturazalea** jarri dute ume hiperaktiboaren adibide gisa. Berria - Gaiak

Militar **abenturazale** batzuek bat egin dute terrorista komunistekin eta beste jende batzuekin boterea eskuratzeko asmoz. Berria - Mundua

Beste morroi **abenturazale** pare bat igarri ditut haren atzetik alde egiten. Urtzi Urrutikoetxea

"Altxor baten bila dabilen **abenturazalea** naiz ni", esan zion bere buruari. Xabier Aranburu

Berez **abenturazale** izanik, gazte-gazterik sartu zen Espainiako Erregearen zerbitzura, soldadu gisa. Felipe Juaristi

Askotan, bizitza eredugarrien bila gizon bortitz eta **abenturazaleengana** jo ohi dugu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hona hemen Zugarramurdiko Etxehun bertsolariak Zalakain **Abenturazalearen** hilobian asmatu zuen epitafioa: [...]. Koro Navarro

Merkatuak eragile **abenturazaleenak** zigortzen jarraitu ahal izatea, beraz, guztiz premiazkoa da oraindik ere sistemaren jardunbide egokirako. Koro Navarro

Egiptoren mendebaldartzea, Mehmet Ali albaniar **abenturazaleak** kristau-aroko hemeretzigarren mendearen bigarren laurdenean gauzatua. Iñaki Mendiguren

Musikazaleak, artexak edo poetak, kirolzaleak eta **abenturazaleak** bezain ongi etorriak izango dira. Herria

Ez nuke inortxo ere konbentzituko; batzuk fanatikoak dira eta besteak **abenturazaleak**, eta inor ez dago konbentzitzen uzteko prest. Hau da jende askok, errege-erreginek, militarrek, **abenturazaleek**, filantropoek, mende askotan izan duten ametsa. Koro Navarro

Gobernu inperialak zernahi erabakita ere, merkatari, aitzindari, **abenturazale** eta horrelakoen interesek mugaz bestaldera eramango dituzte ezinbestean. Iñaki Mendiguren

Atsegin du beste **abenturazale** batzuen lekukotasunak irakurtzea, hala nola Marko Polok Mirarien Liburuan idatzitakoak. Patxi Zubizarreta

Boterea banatzen zen guneetan emozio bila zebilen **abenturazale** bat besterik ez zela. Ander Irizar

Ez zuen Dili eta Kupangera gasolina bila joan beharrik izango, bidaia hura arriskuz beterik ikusten baitzuen orain; zer esanik ez negoziante zuri, gaizkile makur eta **abenturazale** lapurrez mukurutu eta kutsatutako hiri zatar beldurgarri haiek. Xabier Mendiguren Elizegi

Antje maitea, zuk ez duzu sekula ulertu nire kemena, urruneko printzesa konkistatzera etorri den **abenturazale** izukaitz honen grina. Fernando Rey

Lurringileak denda bat zeukan Palais Royalgo behealdean, eta auzoa betetzen duten **abenturazale** amorratuek osatzen zuten gehienbat haren bezeria. Koro Navarro

Horrelako **abenturazale** irrigarri baten goranahia asetzearren. Koro Navarro

Merkatari gisa Tartessos-era itsasoz joan edo mertzenario gisa Egipton edo Babilonian jardun zuten seigarren mendeko **abenturazale** helenikoen ametsik handinahienak. Iñaki Mendiguren

Zeraman gorbata nabarmen antxa gertatzen zen jantzi haiekin, haren adinean eta urtaro hartan, eta nolabaiteko **abenturazale** eitea ematen zion. Ander Irizar

Frantzia arpilatzen, bortxatzen, erailtzen ari diren **abenturazale** multzo baten eskutan gaude. Karlos Zabala

Baal-Berit jainkoaren jauretxetik zilarrezko hirurogeita hamar txanpon hartu eta Abimeleki eman zizkioten; honek, diru harekin, gizon arlote eta **abenturazale**-talde bat bildu zuen, jarrai ziezaioten. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
abenturazale bat (4); **eta abenturazale** (3)

---

abenturazaletasun *iz* abenturekiko zaletasuna.

Txirotasunak zein **abenturazaletasunak** mundua korritzera bidali zituzten hiru gaztetxo horiek -Lech, Czech eta Rus-, eta munduan zebiltzala, ilunabar ekaiztsu batean, arrano zuri bat ikusi zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

abenturazko 1 *izlag* abentura duena ardatz.

Abenturazko prosa lan bitxia ere idatzi zituen Perez Lazarragak. Berria - Kultura

Gauza pare batez konturatzeko balio izan zidan esperientziak, hala ere: bata, **abenturazko** nobelak horrelatsu zeudela eraikita, arazoak planteatu eta arazo horiek konpondu; bestea, [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Abenturazko nobela historikoa idatzi dut. Berria - Kultura

Urte horietan [...] Marcel Schwob-en hautua garbia izan zen oso: utzi atzean errealismoaren eta eleberriaren inguruko eztabaida antzua, eta Daniel Defoe eta Robert Louis Stevenson ordezkari lituzkeen Ingalaterrako **abenturazko** istorioen tradiziora egin zuen jauzi. Juan Garzia

Samurtzen nau Wallace hau defenditu beharrak, baina, **abenturazko** film baten alde ari ziren gonadun haiek? Iñigo Aranbarri

Larunbatean hasi eta abenduaren 12a bitarte, **abenturazko** zortzi filmen DVDak banatuko ditu BERRIAk, astebururo bana. Berria - Kultura

Bi aurkezpen zeuzkan goizean: irakurri ez zuen **abenturazko** liburu bat -Udal Liburutegiko sotoan, goizeko hamarretan- eta sekula entzun ez zuen kultur talde baten manifestua -Koldo Mitxelenan, eguerdian-. Fernando Morillo

Maite nuen, eta **abenturazko** bidaia horietatik itzultzen zenean, kanpoan hilabeteak egin ondoren, are gehiago maite nuen beharbada. Ander Irizar

Abenturazko hamaika liburu irakurri izan zituen Pellok, piratenak-eta. Joan Mari Irigoien

Abenturazko beste bat ere idatzi nuen, baina ez zuen arrakastarik izan. Berria - Kultura

Ez dakit gai izango ote naizen dauzkadan sentipenak, egunerokotasuna, zirrara eragiten duena, politikoa, psikologikoa, **abenturazkoa**, familia harremanak eta munduarekikoak... hori guztia, eta konfinaturik nagoen uharte honetako nire deportatu izaerari dagokiona zuengana helarazteko. Jokin Urain

Uztailan eta abuztuan, Gipuzkoako 330 gaztek guztira, 155 leku daude egonaldia euskaraz egiteko **abenturazko** jarduerez gain kulturarekin eta aisiarekin lotutako beste hainbat jarduera egingo dituzte. Berria - Euskal Herria

Laurok istorio bana hasi behar genuen, **abenturazkoa**, eta gure protagonistari arazo bat sortu. Xabier Mendiguren Elizegi

Garai hartan ofizialek konta ezin ahala amodio **abenturazko** nobela ilustratu irakurtzen zuten. Pello Lizarralde

2 *abenturazko film*

Etxean, patxada ederrean eta familia giroan, **abenturazko filmak** ikusteko aukera eskainiko die zortzi astez, datorren asteburuan hasi eta abenduaren 12a bitarte, Berria egunkariak bere irakurleei. Berria - Kultura

Kioskoan Berria erostean, 2,90 euro ordaintzea aski izango da, zortzi asteburu horietan, **abenturazko film** baten DVDa eskuratzeko. Berria - Kultura

Borrokak eta jazarraldiak ohikoak diren ospitale bateko korridoreetan girotzen da **abenturazko film** hori. Berria - Kultura

Berak idatzi du **abenturazko filmaren** gidoia. Berria - Kultura

Eta samurtzen nau Wallace hau defenditu beharrak, baina, **abenturazko film** baten alde ari ziren gonadun haiek? Iñigo Aranbarri

3 *abenturazko zinema* *(corpusean ez dago; ETCn **44** agerraldi)*

Abenturazko zinema zinema genero ezaguna da. Dramatiko eta suspensezko eszenetan oinarritutako filmeak biltzen ditu. ETC-entziklopedia

Ilustratzaileak, gainera, beldurrezko eta **abenturazko zinema** klasikoaren kartelei omenalditxoa egiteko baliatu du ipuina. ETC-prentsa

Hirugarren Munduko Zinema, Zinema eta Gerra, Zinema eta Erlijioa, **Abenturazko Zinema**... gaiak jorratuko dira, besteak beste. ETC-prentsa

Abenturazko zinema biltzen du atal honek. ETC-prentsa

Izuaren, **abenturazko zinemaren** eta istorio espazialen gaineko lau abesti batzen ditu diskoak. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
abenturazko film (3); **abenturazko nobela** (5); **eta abenturazko** (4)

---

aventurerismo *iz* modu aventuratsuan jokatzeko joera.

Ez haut sartu nahi **aventurerismoan**. Koldo Izagirre

---

aventurero *izond/iz* aventurazalea.

Errotik ekintzaile, euskalduna **aventureroa** da eta etxetik kanpo ibili ohi da, guduan, itsasoan eta nahinon: [...]. Joxe Azurmendi

Matiasek esan zion ez zuela **aventurerorik** behar, eta beste etxe batzuetan entzundako bizitzak kontatu zizkion; horixe behar zuela, halakoak behar zituela. Unai Elorriaga

Deitu ziotenetik pentsatu eta pentsatu egon zela esan zion Nemiak, baina ez zitzaiola ezer okurritu, ez zuela berak **aventurerorik** ezagutzen, Idusen. Unai Elorriaga

Zalakain **aventurero** karlistarena. Joxe Azurmendi

---

aventuros *izond* ausarta.

Aurelia Arkotxaren erudizioaz (**abenturosa** eta are erratikoa ere denaz) froga franko banuen. Aurelia Arkotxa

---

aber ea.

Eta hi Luisa, **aber** noiz portatzen haizen hi ere! Pako Aristi

-Utzi fregatu eta garbiketa eta txorakeria horiek eta **aber**, inork ekarri al du ezer pentsatuta manifesturako? Iñaki Iñurrieta

Aber, ekar ezazu. Xabier Mendiguren Elizegi

Aber erakutsi hankak. Patziku Perurena

-Aber, eskritorea... Harkaitz Cano

Aber ez ote haizen gelditzen Imanolen pisuan lo egiten azkenean... baten batekin! Fernando Morillo

- **Aber**, zu nola deitzen zara? Iñigo Aranbarri

" **Aber** korrea hori," esan zuen Tapaxek. Pablo Sastre

Aber besteek zer esaten duten. Pablo Sastre

Bueno, **aber**, zu azaltzen zara... zaude... edo aldaketa eske, edo krisi batean... ez dut gauza argi ikusten! Pako Aristi

Bah... **Aber** haiek etortzerako markoak jartzen ditugun behintzat. Pablo Sastre

"Aber", Pintxok, atzeko horiek, zer etorri zarete, asanbladara ala jolasera? Pako Aristi

Aber, **aber**, **aber**. Eider Rodriguez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aber zer** (5)

---

aberasbide *(orobat **aberaspide**) iz* aberasteko bidea.

Boterearen **aberasbide** azkarra. Xabier Olarra

-Ez, ezinago garbi jokatu du beti, inongo **aberasbiderik** legezkoenez baliatu da hasieratik bertatik. Jose Morales

Beraz, haien erortzea munduarentzat **aberaspide**, hau da, haien hutsegitea jentilentzat **aberaspide** gertatu bada, zenbatez aberasgarriago ez ote da izanen Israel osoak salbamena iristea! Elizen arteko biblia

---

aberasgarri *(ETCn **2.887** agerraldi; orobat **aberatsgarri** g.er.)* **1** *izond* zerbait edo norbait aberasten duena, aberasten duena.

Orain arte neuk itzuli ditut neure lanak gaztelaniara, eta ariketa **aberasgarria** gertatu zait. Ana Urkiza

Gaztelako koroarekin elkarlaguntza eta integrazio prozesu ezberdin eta **aberasgarriak** garatzeko. Iban Zaldua

Artean gazte zarelarik, uste duzu mundua esperientzia **aberasgarriz** betea dagoela, hurrengo kale kantoian zain duzula txundituko zaituen emakumea. Patxi Iturritegi

Beti uste izan dugu unibertsitate elebidunak aukera anitz eta **aberasgarriak** eskaintzen dizkiela ikasleei. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Luriek (berrogeita hamahiru urte, poeta erromantikoetan aditua) esan zuen emakume gazte ikasleekiko esperientziak **'aberasgarriak'** iruditu zitzaizkiola. Oskar Arana

Diferentzia **aberasgarrien** harmonia. Joxe Azurmendi

Aurten, adibidez, oso uzta ona izan dela esango nuke, askotarikoa, hasi *Neska politak artasoro alaiak* lan xume baina ederrekin eta iritsi Kaukasiar kreazko borobila-k dakarren konplexutasun **aberasgarri** eta ikusgarrira. Berria - Kultura

Horra zergatik, hor dauzkagun oraino, gaur egun, **aberasgarri** eta irakurgai, orduko idazle handien obrak, Efrem, Pakomio, Atanasio eta grekoz idazten ez zuten beste asko. Piarres Xarriton

2 (izan aditzarekin)

Minbiziari aurre egitea ere esperientzia konparaezina eta **aberasgarria** da bizitzan, baina ez nau batere tentatzen. Arantxa Iturbe

Kulturen arteko bereganatze eta barneratze hori **aberasgarria** da. Askoren artean

Kontraesanak denok dauzkagu, eta **aberasgarri** dira, baina kontraesan horiek denboran irauten dutenean, eta salbuespena zena zure bizitzaren oinarrizko arau bihurtzen denean, orduan sortzen da inkoherentzia. Pako Aristi

Eztabaida sutsua eta **aberasgarria** izan zen. Edurne Elizondo

Hala ere, mendebaldeko jendearekin, batzuetan bakean eta besteetan gerran, bizi izandako denboraldi hura **aberasgarri** izan zitzaion, eta probetxugarri oso. Felipe Juaristi

Garbi dago aniztasuna ez dela beti **aberasgarri**. Joxerra Garzia

Esperientzia **aberasgarria** izan zela. Oskar Arana

Guretzat **aberasgarria** eta, bereziki, osasungarria da: ondo datorkigu urtean zehar elkarrengandik apur bat urruntzea. Patxi Zubizarreta

Hemengo esperientzia **aberasgarria** eta positiboa izan zen haientzat. Patxi Iturritegi

Horixe da, hain zuzen, etorkizuneko eginbeharra: egoera iraultzea, euskalkiak inoren "bereizgarri" izan beharrean, denon **"aberasgarri"** eta denon "gozagarri" izatea. Koldo Zuazo

Bere hizkera ikasi nahi nuen: niretzat **aberasgarria** izateaz gain, bera nireganatzeko modua izan zitekeelakoan nengoen. Aitor Arana

Eta, zer erranik ez, pertsonen baitako bakardade hautatua gozo eta **aberasgarria** izaten ahal da. Filipe Bidart

Irratia, antzerkia eta bertsolaritza lantzea **aberasgarriak** dira, eta horiek salbatu dute ahozkotasuna gure ikastetxeetan. Berria - Kultura

3 (izen gisa) aberasten duen gauza.

Niri suspensezko literatura ez zait gehiegi gustatzen, amaieran gertatzen dena jakiteko desirak gehiegi baldintzatzen baitu irakurketa; hau da, bidaia presatia bilakatzen da,

irakurleak paisaiaz gozatzeko patxadarik ez duena, testuaren **aberasgarri** oro gertatzen baitzaio azken orrira lehenbailehen iristea eragozten dion oztopoa. Ramon Saizarbitoria

Gezurra nioke horrela ibilia damu dudala esango banu, denek ala denek eskaini baitidate **aberasgarririk** zerbait. Joxerra Garzia

4 *(-en deklinabide atzizkiaren eskuinean)*

Laukotearen **aberasgarri**, Etxepareko Jason etorri zen Arbideko musika eskolan ikasteko baliatzen zuen biolina kokospean. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aberasgarri eta** (5); **aberasgarri izan** (5); **aberasgarria da** (29); **aberasgarria dela** (3); **aberasgarria eta** (6); **aberasgarria izan** (32); **aberasgarria izan da** (13); **aberasgarria izan daiteke** (4); **aberasgarria izan zen** (9); **aberasgarria izango** (9); **askoz aberasgarriagoa** (3); **biziki aberasgarria** (3); **egotea aberasgarria** (3); **ere aberasgarria** (7); **ere aberasgarria izango** (3); **esperientzia aberasgarria** (8); **esperientzia aberasgarria izan** (4); **esperientzia oso aberasgarria** (4); **eta aberasgarri** (3); **eta aberasgarria** (12); **eta aberasgarria da** (3); **eta aberasgarria izan** (4); **eta aberasgarriak** (3); **hori aberasgarria** (5); **hori aberasgarria da** (3); **hori ere aberasgarria** (5); **hori oso aberasgarria** (3); **oso aberasgarri** (3); **oso aberasgarria** (25); **oso aberasgarria da** (10); **oso aberasgarria izan** (11)

---

aberasgarritasun *iz* aberasgarria denaren nolakotasuna.

Bizitzaren **aberasgarritasuna** pobretuz. Pako Aristi

---

aberasgogo *iz* aberatsa izateko gogoa.

Herbert Raas, Iparreko itsaso hotza eta Nederlandeko ubide lasaietako ur bareak utzita Timorreko irlara etorri zenean, Sawu, Timor eta Sondako itsaso epel eta tiburoiez betetakoetan perlak bilatzera bultzatu zuena ez zen izan diruzaletasun edo **aberasgogoa**, inondik ere, bizitzaren ikuspegi erromantikoa eta abenturarako joera ezin neurtuzkoa baizik. Xabier Mendiguren Elizegi

---

aberasgune *iz* aberatsen gunea.

Garapen-bideko herrialdeetan aspaldi sortutako **aberasgune** bakanen ondoan ordea, pobregune gero eta ugariagoak ageri dira antzina industrializaturiko herrialdeetan. Koro Navarro

---

aberaska ik **abaraska**.

---

aberaska ik **abaraska**.

---

aberaskeria *iz* aberastasun gaitzesgarria.

Pentsatzen hasia naiz, ez ote diodan bisita egin beharko bata zuria janzten duen sendagile horietako bati, gure egoera larri honetan, honelako **aberaskeria** alferrikakoei leku egiteagatik. Hasier Etxeberria

---

aberaski *adlag* aberastasunez, modu aberatsean.

Latina kanpotik etorria da, zentzu horretan, eta hemen aurkitu zuen dagoeneko perpausak justuki eta **aberaski** komunztatzen zituen beste hizkuntza bat, hitzen oparotasunak josia. Pello Salaburu

---

aberaskilokume *iz adkor* aberaskumea.

Guri ere erakutsi ziguten trantze jakin batzuetan eskerrik asko esaten (alfer samarrik, egia), baina ez ziguten erakutsi faborez eta mesedez xiudadekumeek (eta herrietako **aberaskillokume** eta jendaila zuriak) esaten duten ainbete aldiz esaten, ez hurrik eman ere! Iñaki Segurola

---

aberaskote *iz adkor* pertsona aberats gaitzesgarria.

Bere barrengo harrak isilarazi nahi dituen **aberaskoteak** ez du abadia bat jasoarazten, museo bat baino. Anjel Lertxundi

Aberaskoteren bat izan beharko. Hasier Etxeberria

---

aberaskume *(ETCn **197** agerraldi)* **1** *iz adkor* pertsona aberats gaitzesgarria.

Niretzat Ziburuko **aberaskume** bat baizik ez da izan beti Leon. Hasier Etxeberria

Zer edo zer iluna zegoen mutil harengan, uxatu egiten gintuen zerbait; **aberaskumea** zen, gainera. Iban Zaldua

Brooklyngo zubia eraiki aurretik transbordadore bat zen East River zeharkatu eta **aberaskumeak** Manhattandik beren udako etxaldeetara eramaten zituena. Harkaitz Cano

Hitz-jario errazeko **aberaskumeak** zeuden eskolan, oso aurreratuta zeuden irakurtzen eta idazten ikasteko kontuetan, izan ere, aberatsek oso txikitatik bidaltzen dituzte beren semeak eskolara, eta pixka bat koskortu orduko irakasleek bezala hitz egiten jakiten dute. Pello Lizarralde

Gure aita hasi zitzaion esaka gizagaixo hutsa zela kosta ahala kosta hankak estali nahi zituelako galtza luzeak eramaten dituzten **aberaskumeen** antzera, eta gure familia lur jota utzi nahi zuela. Pello Lizarralde

Tonto-harroak eta **aberaskume** parrandazaleak besterik ez dago hemen. ezeren ardura hartu nahi ez zuen **aberaskume** jolastiak Errusiako agintea nork eraman behar zuen garbi ikusi zuen: Dimitri Paulovitxek izan behar zuen Errusiako lurralde guztietako tsar bedeinkatua. Josu Zabaleta

2 (izenondo gisa)

Frantzisko, beraz, **aberaskumea** da, nahiz eta haren izaerak antz gutxi duen aitarenarekin. Askoren artean

Arrazoi guztia dauka: bolketako neska haiek dira mutil **aberaskume** haien trofeoa. Pako Aristi

SoHo berri bat bihurtuko da East River ibaiaren bestaldeko gune hau ere, artista **aberaskumeentzako** leku bat. Harkaitz Cano

---

aberasle *iz* aberasten duena.

Euskara eta gaskoina elkarren eta Angeluren **aberasle** izan daitezen eta ez berexle. Herria

aberaspide ik **aberasbide**.

---

aberastarzun ik **aberastasun**.

---

aberastasun *(ETCn **10.882** agerraldi; orobat **aberastarzun** g.er. eta **aberatstasun** g.er.)* **1** *iz* ondasunen ugaritasuna; aberatsa denaren nolakotasuna.

Erregea sinesgaitz agertu zen, baina agindutakoa lortuz gero, **aberastasunak** eta ohore handiak agindu zizkion. Patxi Zubizarreta

Ez zaituztegu hemen bildu jakiteko zenbat agindu beharko genizuekeen, **aberastasunez** oparo zareten horiei, gure opariek areago aberasturik, gurekin hiri hau setiatzeko geldi zintezten. Jon Alonso

Ostera, esklabutza, txirotasun, **aberastasun**, askatasun, gerra, bake, euren etortzez edo joatez izaera aldagabe uzten duten gainerako guztiei, bidezko denez, gertakariak deitzen diegu. Xabier Amuriza

Gobernu honen gaitzik handienetakoa gehiegizko biztanleria da, eta ez da egia soberan dauden horiek **aberastasuna** direla estatuarentzat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hori ez da **aberastasuna**, hori ez da hizkuntza jakitea; petralkeria eta sasiletratukeria besterik ez da hori. Koldo Zuazo

Aberastasun anitz bada, iduritzen zaizkizunak baino aise handiagokoak. Aurelia Arkotxa

Horrek guztiak **aberastasuna** sortzen du, baina tratamentua ez da holakoa unibertsitateekin, ongi ez dakigula zergatik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lagunak deabruaren eskolaz hitz egin zionetik, Axularrek ez darabil besterik buruan: jakituria eskuratu nahi du Axularrek, harentzat edertasuna eta **aberastasuna** "lore ttipi eta laburrak" baitira. Anjel Lertxundi

Arrazoia dauka amak: erregeak, bere luxu, **aberastasun** eta sofistikazio guztiarekin, ez du bere bizitzan amuarrain hauek bezalakorik jan. Pako Aristi

Egizak barre hik, nahi baduk, fritztarrak ez zeudean nahastuta: gizon bat horrelako ezkutuko atsegin lekuan, eskuak **aberastasunez** beterik, harrapatzen bada, arriskutsua nahitaez gizon hori. Josu Zabaleta

Zahartzaro ona eman ondoren hil zen, urtetan aurreratua, **aberastasun** eta ospez betea. Haren seme Salomon izan zen hurrengo erregea. Elizen arteko biblia

Edertasuna, **aberastasuna** eta jakituria dira deabruaren eskolan izena ematen dutenen apetak, eta itzala pagamendu. Anjel Lertxundi

Behatoki altuena izanik, 766 metroko altueran kokatua, neguko nola udako datuen uneoroko **aberastasuna** bildu eta gorde nahi zuten. Pello Zabala

Ene gizon gorena, Atenastar hori, izenean eta indarrean handiena eta entzutetsuena den hirikoa, ez al zaitu lotsarazten **aberastasun**, ospe eta ohore ahalik eta handienak edukitzeaz arduratuta ibiltzeak, jakinduriaz, egiaz eta arima onenaren izaeraz arduratu eta kezkatu beharko zenukeenean? Askoren artean

Noizbait, hil egin zen azken alaba, aitaren etxean bizitzen geratu zen bakarra, eta agurea bakar-bakarrik gelditu zen, bere **aberastasun** guztien jagole, zaindari eta jabe. Jose Morales

Eztabaidan aritu ziren, zein bere herriaren bikaintasunen alde, eta herri-kantuetatik usadioez eta **aberastasunaz** hitz egitera igaro ziren. Koro Navarro

Elizetako **aberastasunak** ere ebatsiak baitziren denbora berean, ez da harrigarri euskaldunek ez onartzea holako lege eta egitate tzarrak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lehenik mutikoari esplikatzen dio Euskal Herriko anitz elizetan bezala Baigorrin ere hil-harriak eliza inguruan zirela, eta harri borobilak bazirela eta zer ziren, euskal ondarean **aberastasun** bat, zoritxarrez errespeturik gabe hautsiak izan direnak edo ebatsiak. Michel Oronoz

Émilie hartaratzea izan nuen zailtasun bakarra, auzapez haren **aberastasunak** arranguratuxe baitzeukan. Jon Muñoz

Zeharka begiratu eta emakume asko ezezagunak zituela ohartu zen, kanpotarrak beraz, printzeen ospeak eta **aberastasunak** erakarriak. Felipe Juaristi

Frantzia, beste gerla bat galdurik, garapenerako eta **aberastasunerako** bidean zegoen berriz eta artetan gerlaz oroituz, medaila hemen, xingola han, Aljeriako soldado ohiak frantses patriota berri bihurtu ziren gehienak. Piarres Aintziart

Aski dute beren borondate iruzurgilearen nahikunde bat, eta printze, enperadore edo jainko bihurtzen dira, munduko **aberastasun** guztien jabe bihurtzen dira, bizitzako gozagarri guztiak eskuratzen dituzte, plazer guztiak gozatzen, beti indartsu dira, beti eder, beti gazte, beti maitatu! Josu Zabaleta

Ezkondu egiten dira, ez neskatxa maite dutelako, haren dotea eta haren etxeko **aberastasuna** irrikatzen dutelako baizik. Gotzon Garate

Famatua zen leku hori zituen **aberastasunengatik**. Aurelia Arkotxa

Gerora, bizitzak aurrera egin ahala, pentsatu nian **aberastasuna** ez daitekeela barka, beharbada. Xabier Olarra

Erregeak, gainera, Mordreten esku utzi zituen **aberastasun** guztiak, itsasoaz bestaldetik eskatuz gero berehala bidaltzeko aginduarekin. Juan Kruz Igerabide

Ez zen maitasuna, inondik ere, ez loria, ezta **aberastasuna** ere. Monika Etxebarria

Zuhaiztian, indartsu, zaratatsu ordurako, udaberriak bete-betean erakusten zituen bere **aberastasunak**. Joxemari Urteaga

Ez dut ukatuko uste horien alderdi zuzena, baina egokiagoa eta onuragarriagoa litzateke bertute eta **aberastasun** horiek euskalkietan banatuta egon beharrean, denak batuta egongo balira euskara bakarrean. Koldo Zuazo

- Nola zitekek pertsona bakar batek hainbeste diru?, nondik hainbeste **aberastasun**? Hasier Etxeberria

Herensugearen sinboloa izanki, mendiak boterea eta **aberastasuna** segurtatzen ditu. Ramuntxo Etxeberri

Iraultzak aberastu zuen Goriot lotsagarri zaie alabei, aitaren **aberastasunak** goititu baditu ere sorkuraz ez zegokien gizarte goialde aristokratikora. Markos Zapiain

Gure **aberastasunaren** erakusgarri dira. Txema Ramirez de la Piscina

Hitzeman bezala, **aberastasun** ugari eskaini zizkion eta, esker onez, bere konfiantzako kontseilarien artean hartu zuen. Patxi Zubizarreta

- **Aberastasun** asko ekarri nuen, bai, lagunok, baina ez dut horietaz gozatzeko pozik izan. Juan Kruz Igerabide

Gure **aberastasunari** mugarik jarri ezean, munduko miseriak mugagabe hazten jarraituko du. Pako Aristi

Emandako hitza betetzen ez duena, diru edo **aberastasun** baten truke. Pako Aristi

Hitlerrek Alemania eder batez hitz egiten zigun: lana faltako ez zen Alemania berri batez, **aberastasuna** modu bidezkoago batean banatuko zen Alemania zuzen batez, inguruko herrien menpeko izanen ez zen Alemania indartsu batez... Alberto Ladron Arana

2 (izenondoekin)

Baina nire edertasun intelektuala, **aberastasun** espirituala eta bihozberatasuna ez ditut inoiz galduko, suspertu baizik! Xabier Paya

Ez dira etsitzen, **aberastasun** materiala, ongi-izatea eta dirua metatzea Jainkoak asmatu ekintzak direlako. Itxaro Borda

Handik hona hainbeste urte iraganagatik, eta tartean trukeen liberalizazioa eta nikelaren nazioarteko prezioaren gainbehera gertatuagatik ere, ibar hartan gorderik -hantxe, edonoren esku dauden harrikin birrinetan- datzan **aberastasun** ikaragarriaren berriak fantasiak pizten ditu oraindik ere. Juan Garzia

Ahantzi dugu geroa oraindik ez zela han; tipoa paseoan zebilen iragarpenik gabeko gau batean, zeinak nahasian eskaintzen zizkion bere **aberastasun** monotonoak, eta ez zuen aukera egiten. Monika Etxebarria

Bertsolariek eta beste kultura batzuetako inprobisatzaileek batera eginiko saioetan, aldiz, entzule gehienek, bertsoen testua ez ulertu arren, generoaren **aberastasun** erantsi gisa, eta ez akats gisa, jaso dute bertsolaritzaren musika-soiltasun hori. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

"**Aberastasun** berdingabea, ordea, handik kanpo zuten egoiliarrek, Liburutegi Nagusian, Museoaren esparruraino hedatzen baitziren haren eraikin zabalak. Jon Muñoz

Izan ere, haiei **aberastasun** handia dutela esan, eta euskararen kontuan, ezta hitz erdirik ere. Edorta Jimenez

Konpainia horien izaera **aberastasun** partikularrei **aberastasun** publikoen indarra ematea da. Iñaki Iñurrieta

Negozio-gizon argia zen, antza, eta **aberastasun** ugariak lortu zituen. Askoren artean

Fisiokrata deitutako ekonomialari frantsesak izan ziren nazioen **aberastasun** erreala aberastasun horren oinarri? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Dena dela, gurea defendatzeko altxatzekoak gara, bestela **aberastasun** kulturalak oro galtzera uzteko arriskua dugu. Itxaro Borda

Betidanik gasnaren lortzea desafioa izan da; **aberastasun** mistiko horren ekoizpena lander guztien menpe egon da, lehen baiki, oraindik eiki. Itxaro Borda

Ikuspegi honetatik jorratuta diskurtsoa aldi berean betetasun eta **aberastasun** mugagabea da. Xabier Arregi

Nik jakin nahi nukeena da zenbat hizkuntzak daukaten munduan ezer ez esan eta nahi dena aditzeko **aberastasun** tekniko dotore hau. Iñaki Segurola

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bestalde, **aberastasun** -zantzu ukaezina zeukan Ségouinek. Irene Aldasoro

Festaren goreneko garaietan, gizonezkoen gauza izaten zen Danborrada, eta hartan, hiriko gizarte klase guztiek hartzen zuten parte, demokrazia osoan, gizarte edo **aberastasun** mailen arteko bereizkuntzarik gabe. Askoren artean

Ondorioz, Asiako "Lisboa txikia"-rentzat, diru eta **aberastasun** iturriak agortu ziren. Ramuntxo Etxeberri

Lehenik **aberastasun** -gutiziaz tentatu behar dituztela, ohi duenez gehienetan, errazkiago etor daitezen munduko ospe hutsalera, eta gero hantuste larrira. Patxi Altuna

Sudur zuloak eta usnamena atezu badituzu, a zer nolako **aberastasun** ñabarduraz hornitua kokatuko duzun zure oroimen ongi ordenatuan, eta a zer nolako lasaitua hartuko duzun, bidenabar, arnasak barrena sakoneraino baretu dizueneko. Pello Zabala

"Abadearen eta konbentuaren artean agerturiko leizea **aberastasun** -metaketak eragin zuen neurri handi batean. Iñaki Mendiguren

Bainugela edukitzea, **aberastasun** -seinale, gero eta normalago bihurtu zen gerra ostean, eta amak txiki bat jarrarazi zuen goiko solairuan, aitak ez zuen inoiz erabili, eta garbiketa eta bizarra sukaldean egiten jarraitu zuen. Joseba Urteaga

Bihotzik gabeko harri gogor eta garden horiek, argiaren distira jasotzeaz gain, pertsonen **aberastasun** gosea jasotzeko ahalmena dutela dirudi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Naturak ez du aski gizonak zoriontsu eta zoritxarrekoen artean banatzea, aberatsen eta pobreen artean; aberatsari **aberastasun** -espiritua ere ematen dio, eta pobreari miseria-espiritua. Josu Zabaleta

Lehen labarariek lurrak lantzen eta ereiten hasi zirenean, beren ingurura bildu arazi zituzten hegaztiok, eta honek zibilizazio eta **aberastasun** igarle bihur arazi zituen, baina gero, hegazti harrapariok uzta sail izugarriak hondatzen, eta batez ere ale jaten hasi zirenean, zorigaitzaren igarle izatera iragoko ziren. Patziku Perurena

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Portu franko hori ezartzeagatik zergetan galtzen duena, errepublikaren lan-**aberastasunari** esker atera dezakeenak berdintzen du. Iñaki Iñurrieta

Hizkuntza-**aberastasuna** edo aipatzen da. Edorta Jimenez

Saudi Arabia ideia aurrerakoien aurkako borrokaren iturria izan da, eta urteetan zehar rol hori izaten jarraituko du, lehiakide eza eta eta petroli**aberastasuna** direla eta. Berria - Harian

Munduko uharterik handienean bizi diren herritarren iraupena arriskuan dagoela ohartarazi dute, ordea, eta inuitekin batera euren kultur**aberastasuna** desagertuko litzateke, zuria kolorearen izen sorta barne. Berria - Mundua

5 ***aberastasun biologiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Hala ere, oro har, sasiekin edo abeltzaintzarentzako larreekin alderatuta, insignis pinudi batek **aberastasun biologiko** eta ekologiko handia du. ETC-prentsa

Benetako **aberastasun biologikoa** ez dagoela hondartzetan gogoratu zuten, itsaslabarretan baizik. ETC-prentsa

Gainera, basoak oso gazteak direnez, eta zuhaitz guztiak adin berekoak, oso egitura sinplea izan ohi dute, enbor zulorik gabea, eta **aberastasun biologiko** txikikoak ondorioz. ETC-prentsa

Esan bezala, honela jarraituz gero lurzoruen **aberastasun biologikoa** galdu egingo da. ETC-prentsa

Lurrazalaren azpian, **aberastasun biologiko** zein geologiko handiko kobek zeharkatzen dituzte Bizkaiko eremu karstikoak. ETC-prentsa

Ibaiaren inguruneko **aberastasun biologikoa** patxadaz ikusteko aukera izango da larunbat eta igande goizean. ETC-prentsa

Mito eta istorioetan, zientziaren mundua harri eta zur uzten duen **aberastasun biologikoko** paisaiaren edertasuna ospatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta **aberastasun biologiko** horren ondorioz, ornodun handiak iristen dira: hontz handia, basa-katua, igaraba eta katamotzak. ETC-entziklopedia

6 ***aberastasunaren banaketa***

Bestetik, ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntutik beste auzi garrantzitsu bat errentaren eta **aberastasunaren banaketari** buruzkoa da, alegia, aipatu tartaren banaketari buruzkoa. Iñaki Heras

Gobernua eta matxinoen arteko negoziazioetan ere, eragina izan du **aberastasunaren banaketaren** kontu honek. Berria - Mundua

Bigarrenaren mendeko dira merkatuko ekonomien egonkortasuna, gizarte-loturen iraupena, **aberastasunaren banaketarako** ahalmena eta kanpoko erasoetatik babesteko gaitasuna. Koro Navarro

7 ***nazioen aberastasun***

Adam Smith izango da, seguruenik, autore aipatuena liberalen artean eta harentzat **nazioen aberastasuna** aztertzea da ekonomiaren helburua. Iñaki Heras

Gizakiak trukerako berez duen joera horrexek bideratzen du -baldin agintari politiko edo moralen debeku arbitrarioren batek galarazten ez badu- lanaren banaketa, eta, horren ondorioz, baita ekoizpenaren eraginkortasuna ere, **nazioen aberastasunaren** oinarri dena. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aberastasun bat** (7); **aberastasun eta** (24); **aberastasun guztiak** (7); **aberastasun handi** (4); **aberastasun handia** (12); **aberastasun handiagoa** (4); **aberastasun handiak** (13); **aberastasun hori** (10); **aberastasun horiek** (4); **aberastasun horren** (7); **aberastasun iturri** (9); **aberastasuna da** (5); **aberastasuna ekarri** (4); **aberastasuna eta** (36); **aberastasuna ez** (5); **aberastasuna sortu** (4); **aberastasuna sortzen** (8); **aberastasuna zeruan** (8); **aberastasuna zeruan izan** (8); **aberastasunak eta** (17); **aberastasunaren banaketa** (10); **aberastasunaren eta** (5); **aberastasunaren zati** (4); **baina aberastasun** (5); **bere aberastasun** (7); **bere aberastasuna** (10); **bere aberastasunak** (10); **da aberastasun** (6); **da aberastasuna** (4); **duen aberastasun** (5); **edo aberastasun** (4); **errenta eta aberastasunaren** (4); **errentaren eta aberastasunaren** (5); **eta aberastasun** (35); **eta aberastasuna** (23); **eta aberastasunak** (13); **eta aberastasunaren** (18); **eta aberastasunaren banaketa** (5); **gure aberastasun** (4); **hango aberastasunak** (4); **haren aberastasuna** (4); **munduko aberastasun** (4); **nazioen aberastasuna** (8); **nolako aberastasun** (4); **sortutako aberastasuna** (5); **zer aberastasuna** (4); **zeure aberastasuna** (8); **zeure aberastasuna zeruan** (8)

---

aberaste **1** *iz* aberats bihurtzea.

Aberaste bat ekartzen badu, eta hau molde baikorrean, sobera gauza badira ezagutzen ez ditugunak, artarik gabe aitzinatzeko. Herria

Baltasar Garzon epailea "legez kanpoko **aberaste**, genozidio eta estatu terrorismoagatik jazartzen ari da judizialki". Berria - Mundua

Azken batean, **aberaste** pertsonalaren aldeko prozesu ilegalak baino gehiago, nire ustez, eskura dituzten mekanismoen baliatzea izaten da. Berria - Euskal Herria

Inoren lanaren etekinetatik bizi denaren **aberaste** kontrolgabea, bere gisa pentsatzen eta morroi izan nahi ez duenari behartzen zaion isiltasuna, gezur sistematiko eta kalkulatua. Juan Garzia

Merkataritza-jarduerek eta **aberaste** -fenomenoek sortzen zuten mesfidantza. Koro Navarro

2 *irud/hed* Segurtasun Kontseilura eramaten bada auzia, uranioaren **aberaste** prozesua maila industrialera bultzatuko dugu. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aberaste prozesua** (4); **uranioaren aberaste** (3)

---

aberastu, aberats, aberasten *(ETCn **8.522** agerraldi)* **1** da/du *ad* aberats bihurtu.

Lotsatu egiten ziren niregatik, eta zenbat eta gehiago jakin nitaz baliatuz **aberastu** zirela, orduan eta gehiago zapuzten ninduten. Askoren artean

Bera izan zela merkataritzan **aberastu** zen bakarra. Bego Montorio

Aholku hau ematen dizut: eros iezadazu zeuretzat sutan garbituriko urrea, **aberats** zaitezen. Elizen arteko biblia

Herri guztiek edan dute haren prostituzio sutsuaren ardotik; munduko erregeak prostituzioan ibili dira berarekin eta lurreko merkatariak **aberastu** egin dira haren neurrigabeko luxuari esker. Elizen arteko biblia

Aurten ere ez gara **aberastuko**! Itxaro Borda

Zoritxarrekoa zu, zoritxarrari ihes egin ustez etxea bidegabeko irabaziz **aberastu** duzun hori. Elizen arteko biblia

Esaten zuen bazekiela edari eta bitxien kontrabandoan **aberastu** izana leporatzen ziotela. Bego Montorio

Eta pobre eta arbuiatua zena **aberastu** egin zuen Jaunak. Askoren artean

Ongi nago zuen konpainian: gutxirekin bizi gara, beti badugu barnez **aberastuko** gaituen zerbait berezi egiteko, argi-urrakoak iratzarraraztera jalgitzen gara goizetan eta gero akademia birtualean biltzen. Itxaro Borda

Sareko negozio horietako bat ere jarri nahi genuke lagun batzuk elkartuta eta gu **aberastuko** gaituen zera horri izenak bilatzen hasi garenean, ia denak hartuta daudela konturatu gara. Hasier Etxeberria

2 irud/hed

Bere esku kutsatuz hartu zituen ontzi sakratuak eta santutegi hura **aberastu**, edertu eta ohoratzearren aurreko erregeek eginiko emariak lapurtu. Elizen arteko biblia

Agintariek gordeko dute jatorrizkoa, eta bilduma partikular bat **aberastuko** du. Jon Muñoz

Eskribek eskuizkribuok kontu handiz aztertu eta berriz kopiatu ondoren, beren jabeei itzuliko zaizkie; kopiak, berriz, liburutegiko apalak **aberastuko** ditu. Jon Muñoz

Beharrezkoago izan daiteke gogoraraztea dialektologiak ematen dituen datuek nola **aberats** dezakeen fonetika eta fonologiaren oinarri enpirikoa. Lourdes Oñederra

Gauza bat ziurra zen, matematikan zehar egindako bidaldi hark hiztegia **aberastu** zion Ruche jaunari. Jon Muñoz

Keynesen ekarpenekin **aberasturiko** sintesi neoklasikoa izan zen ekonomia teoria nagusia Bigarren Mundu Gerraren amaieratik 70eko urteen hasierako petrolioaren krisia arte. Iñaki Heras

Herri hau odolak **aberastu** eta suntsitu du. Piarres Aintziart

3 (adizlagun eta kidekoekin)

Erraz **aberastu**, erraz galdu; poliki-poliki bilduz, gehitu. Elizen arteko biblia

Eman ehun mila errublo eta berehala **aberastuko** naiz. Jose Morales

-Laster **aberastu** nahi baduzu -eten zion jarduna Kostanjoglok, latz eta totelka, artean gaitziturik baitzegoen-, sekula ez zara **aberastuko**. Jose Morales

Ni kolpetik **aberastuko** nauk. Jose Morales

4 (era burutua izenondo gisa)

Asebeteak omen zaudete, **aberastuak**. Elizen arteko biblia

Errealitatean askoz ere handiagoa da **aberastuen** zorra pobretuekin. Iñaki Heras

5 ***aberastu berri*** *(orobat* ***aberastuberri****)*

Tesia, Bilbo-ko burgesiarena da, burgesia handi **aberastuberri** guztiarena bereziki. Joxe Azurmendi

Maketo berba bera, arrazismo abertzalearen seinaletzat ailegatu ohi dena (politikoa), Unamuno-k **aberastuberrien** lorrinkeriatzat jotzen du (soziala): Euskal Herri tradizionala igualitarista izan ei da. Joxe Azurmendi

Nik ez nekien, ordea, merkatari ezagun **aberastu berri** baten alaba zela hura, neska ezin esnobago bat. Joan Mari Irigoien

6 ***uranio aberastu***

Esaterako, jakin nahi dute nondik datozen **uranio aberastuaren** %36raino zenbait aztarna Berria - Mundua

Akordioaren helburua Iranek **uranio aberastuaren** programa bertan behera uztea izango litzateke. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aberasteari utzi (5); **aberasteari uzteko** (7); **aberasteko asmoa** (4); **aberasteko egitasmoa** (4); **aberasteko eta** (13); **aberasteko jarduerak** (7); **aberasteko lanak** (4); **aberasteko programa** (9); **aberasteko programa bertan** (4); **aberasteko prozesua** (20); **aberasteko prozesua errusian** (5); **aberasten ari** (16); **aberasten da** (6); **aberasten du** (9); **aberasten dute** (8); **aberasten eta** (4); **aberastu behar** (5); **aberastu da** (10); **aberastu dela** (7); **aberastu dira** (7); **aberastu du** (8); **aberastu egin** (25); **aberastu egin zen** (4); **aberastu egingo** (14); **aberastu egiten** (18); **aberastu eta** (15); **aberastu nahi** (14); **aberastu nahian** (4); **aberastu zen** (8); **aberastu ziren** (5); **aberastu zuen** (7); **aberastuz joan** (6); **asko aberasten** (5); **asko aberastu** (6); **bat aberastu** (4); **batez aberastu** (7); **bere burua aberasteko** (5); **beti aberastuz** (5); **burua aberasteko** (7); **dira aberasten** (4); **ere aberasten** (5); **ere aberastu** (4); **errusian aberastea** (6); **esker aberastu** (4); **eta aberastea** (5); **eta aberasteko** (11); **eta aberasten** (7); **eta aberastu** (30); **eta aberastu egin** (5); **eta aberastu egingo** (4); **eta aberastuz** (4); **ez aberasteko** (6); **familia aberastu** (6); **gehiago aberasten** (4); **iranek uranioa aberasteari** (5); **iranek uranioa aberasteko** (6); **irani uranioa aberasteko** (5); **izugarri aberastu** (4); **kontura aberastu** (8); **nola aberastu** (4); **teherani uranioa aberasteko** (4); **uranioa aberastea** (10); **uranioa aberasteari** (24); **uranioa aberasteari utzi** (4); **uranioa aberasteari uzteko** (7); **uranioa aberasteko** (86); **uranioa aberasteko jarduerak** (5); **uranioa aberasteko lanak** (4); **uranioa aberasteko programa** (8); **uranioa aberasteko prozesua** (16); **uranioa aberasten** (9); **uranioa errusian aberastea** (6); **uranioa ez aberasteko** (5); **uranioaren aberasteko** (11)

---

aberastuberri ik **aberastu 5.**

---

aberats *(ETCn **24.293** agerraldi)* **1** *izond* ondasun handien jabe dena, diru asko duena. ik **dirudun**; **izandun**. (pertsonez)

Batez ere, Israelen izaera berezia azaldu nahi dute: herri hautatua da Israel, Kanaango lurralde zabalaren jabe egingo dena eta ondorengo ugari eta **aberatsak** izango dituena. Jose Antonio Mujika

Maroneako gizon gazte **aberats** bat zen. Juan Garzia

Berak ez zuen, esaterako, sekula soldata bat irabazi behar izan bizirauteko; **aberatsa** baitzen jaiotzez, ez zuen kezka ekonomikorik sekula eduki. Jon Alonso

Handi nahiz txiki, pobre nahiz **aberats**, elizako nahiz munduko, guti izan ziren gau hartan beren etxeetan gorde zirenak. Aingeru Epaltza

Handienen artean, 100 milioi biztanletik gora dutenen artean, Estatu Batuak eta Japonia dira bakarrik **aberats** eta oparoak. Pello Salaburu

Eta turistak, definizioz, **aberatsak** dira harrera-herrikoen begietara. Edorta Jimenez

Hurrengo egunean, bada, nire orduko lagunarekin nengoen, Brunn aldeko fabrikatzaile gazte **aberats** bat; baziren bi urte harekin nenbilela, eta adoratu, mimatu egiten ninduen. Eduardo Matauko

Eta ene ustez **aberats** izaitea ez da hori! Menane Oxandabaratz

Aberatsen kontutzat jo izan ditu. Anjel Lertxundi

Frantzillaberrin bazuten osaba **aberats** bat. Pako Aristi

Senarra, greziarra, komertzial untzi konpainia baten nagusi **aberatsaren** semea; opera kantari bezala bazuen bere fama eta Baigorriarrak harrituak atxikitzen zituen bere boz lodi eta azkarrarekin, barneak eta kanpoak inarrosten baitzituen. Michel Oronoz

Txikia zen eliza, gizon **aberats** baten sala baino handiagoa ez. Anton Garikano

Haurrak, ia biluzik, nire hanketara etorriko dira dinbili-danbala; nik jaso egingo ditut, neure haurrak gogoan, zeinak, ordurako, helduak izango diren, **aberatsak**, eta zoriontsuak, non edo non. Eskarne Mujika

Zeren beste neska guztiek, jakin zazu - eta hor hasi zitzaion mingaina pozoina zabaltzen -, adiskide **aberats** eta eskuzabalak dituzte. Matías Múgica

Orleanseko dukea Luis XVIøa Frantziako erregearen lehengusua zen, eta Frantziako gizonik **aberatsenetako** bat halaber. Jon Muñoz

Jaun komertziant **aberats** baten etxean nindagoenez, generoak orga astun batean karreatzen nindabilen. Jose Angel Irigaray

Anaia **aberatsa** ez zen batere arduratu iragarkiaz, baina txiroari aukera kilikagarria iruditu zitzaion eta proba egitea erabaki zuen. Jon Arretxe

Gizon **aberats** baten etxean hartu zuen ostatu Lancelotek, Eskaloteko gazteluaren jabearenean, hain zuzen. Juan Kruz Igerabide

Isidro Ortiz de Urruela karlista amerikano **aberatsak** Frantzian erosi, eta Don Manueli oparitua. Txillardegi

Aipatu ere egiten zuten Baptistak suizidiora bultzatu zuela Santo Antãoko etxejabe **aberats** bat 30 kontotako zorraren zioz, urte biren buruan 200 kontotara heldu baitzen hilero kalkulatu eta kapitalizatzen zituen interesak zirela eta. Bego Montorio

Antoñitok anglosaxoniar baten jarraikitasunaz ziharduen emakume **aberats** baten bila. Josu Zabaleta

Budapesteko hiria inoiz baino ederrago zegoen garai hartan, inoiz baino **aberatsagoak** ziren hiriburu hartako **aberatsak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta hantxe hil zen, Txileko Valparaíson, 1853ko abuztuaren 25ean, eta Bergaraz eta Euskal Herriaz oinazerik gabe osoki ahaztuta; eta bertako andere **aberats** batekin esposatu ondoren. Txillardegi

Gallaherrek emakume judu **aberatsei** buruz esan zuena etorri zitzaion gogora. Irene Aldasoro

Etxegile **aberatsen** bat eta bere emaztea afaltzera omen zetozen, eta osaba Vernonek eskabide handiren bat espero zuen harengandik (osaba Vernonen enpresak daratuluak egiten zituen). Iñaki Mendiguren

Gizakion erara mintzatuz, hobe litzateke niretzat gizon **aberats** eta ahaltsu batek, errege batek adibidez, maiteko banindu, nahiz eta mesederik ez egin niri denboraldi batean, ezen ez eta mesedeak etengabe jaso haren maitasunik gabe. Joan Mari Lekuona

Bigarren senarra burtsa-artekari **aberats** bat zen, New Jersey-koa, eta Philip Zorn zuen izena; bazituen hark ere ordurako bi emazte ohi eta alaba hazi samar bat, Pamela. Oskar Arana

-Andere **aberatsen** soinekoa. Anton Garikano

Gaztea, **aberatsa**, umoretsua eta ederra. Jokin Muñoz

Kontzientzia hartze hark bakea eta lasaitasuna ekarri zizkion izpiritura eta, aspaldiko partez bizimodua finkatu eta orekatzeko, bere bezero batekin joan zen bizi izatera, enpresari **aberats** batekin. Jon Arretxe

Anter-en historia zen, gazte **aberats** maiteminduarena, eta Abla mirabe beltzarena. Juan Kruz Igerabide

Amodajtarrak zeuden, Belgradoko galtzerdi-saltzaile **aberats** batzuk alegia, Fiumeko zapatari bat, Zarako apaiz bat, dentista bat eta bi anaia judu alemaniar, bata dantza-irakaslea eta bestea filatelikoa, Bernardo eta Villi izenekoak. Fernando Rey

2 (bestelakoez)

Testuartekotasun **aberats** hau dela-ta nazioarteko kritikak agurtu zuen liburu hau, bere garaian, posmodernismo literarioaren adibiderik gorena bezala. Jon Alonso

Amaiaren aitak gutunez gonbidatu zuen bere alaba eta, hartan, landetxe **aberatsa** zein probintziatako zein herritan zegoen adierazi zion, jakina. Aitor Arana

Gizon hark bere familiaren iragan **aberats** eta zoriontsuaren elezaharra asmarazten zigun, aberastasuna eta zorion guztia gero zorigaitzaren haizerik beltzenak suntsitu eta sakabanatu omen zituela, hondakin batzuk hantxe uzteko geure artean, nahiz eta guk ez jakin ez nondik helduak ziren ez noiz arte. Joseba Sarrionandia

Urantzia-Los Arcos herri **aberatsa** izana, itxuren arabera: karrika nagusi luzea, etxe eta bereziki balkoi ederrak, arkuak eta Santa María elizaren arkitektura berezia bere hiru edo lau estiloekin. Piarres Aintziart

Ez da berria planetako herri **aberats** eta pobreen artean sumatzen den desoreka informatiboa. Txema Ramirez de la Piscina

Ikasleei banatu dizkien orrietan, gogoren kasuistika **aberatsa** ageri da: gogoan izan, gogoratu; gauzak gogara egin; gogo eman; goganbehartu..., polisemia berdin **aberatsarekin**: desira, nahia, irrika... Eskolastikan hezitako aztertzailearen aiurria uzten du agerian Gojenolaren saioak. Iñaki Iñurrieta

Ikuspegi **aberats** hau are gehiago aberastu dute puntu zehatz eta bereziagoei buruz egin diren azterketa askok eta askok (ikusi, oraindik orain, Alain Dhote zuzendari duen Cinéma et psychanalyse bilduman argitaratu diren ekarpen interesgarri asko). Josu Zabaleta

Erromantzero espainola partikularki **aberatsa** da eta kalitate bikainekoa. Joxe Azurmendi

Guztiak etiopiarrak, Etiopia Afrikako lurralde **aberats** eta ilustratuena zen garaikoak. Hasier Etxeberria

Gure auzotik urrun samar zegoen auzo ez **aberats** ez txiro batera iritsi ginen taxian hogei bat minutu egin ondoren. Aitor Arana

Dagoen dokumentazioa ez da **aberatsegia** ere, baina laguntzen du ideia bat egiten. Iñigo Aranbarri

Kemalek hats mitikoko historia bat eskaintzen dio irakurleari, prosa **aberats** eta oparoaren bidez, "Homero" berri bat balitz bezala. Fernando Rey

Jauntasun handiko meza izan zen, gisa guzietara biziki **aberatsa**. Marzel Etxehandi

Horregatik, Azpilgo lurretara iritsi, eta hezur-meategi **aberats** hura ikusi zutenean, zer pentsatu zuten...? Joan Mari Irigoien

Hori da ikaragarriko liburua, biziki hunki nauena eta behar dutana berriz leitu, eta harekin gustian joan ninteke zeren izigarri **aberatsa** baita. Menane Oxandabaratz

Neu arduratzen nintzen anai-arreba txikiez, aitak mendian lan egiten bazuen, amak auzo **aberatsagoen** etxe eta arropak garbitzen egiten baitzuen lan. Jokin Urain

Anartean amak Nakori, etxe hartako gosaio andanek milikatu baina oraino soberaz utzi haragiz **aberats** zen xamangoa eskaintzen zion. Itxaro Borda

Galeoia goletaren aurretik iragan zen, haizearen zurrumurrua zuhaitzen hosto artetik igarotzen den bezala, txopako gaztelu barroko **aberatsa** erakutsiz. Felipe Juaristi

Beste holako egun goxo eta **aberats** bat behar genuela pasatu, bai, hori ez nuen ahantziko. Piarres Aintziart

Baina hori gauza bat da, eta beste bat arras desberdina gure kulturaren zati **aberats** bati, barnean hizkuntza duela, uko egitea, bigarren mailako zerbait izango balitz bezala; pentsatuko bagenu bezala gizarte apaingarri baten gisakoa dela, nahi dugunean kendu, nahi dugunean jarri, aukeran, egiteko modukoa. Pello Salaburu

Politika hori ez ba berez sortzen, eta gizarteak harreman **aberats** horietara bideratu behar lituzke bere jarrerak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Beste modu batean esanda, zuena bezalako kultura **aberats** batekoa banintz, ez nukeen segundo bakar bat ere galduko Oximoron Leibnizbarrutiaren pitokeriekin. Jon Alonso

Alimaleko jakin-mina bizi dugu, beharrak bultzatuta, eta horrek berak ekarri du, berez hain aro aldakorra dugun gure klima hain **aberats** honetan, argi eta atezu bizi beharra daukagula eguraldiarekiko. Pello Zabala

-Egindakoa lan duina da, bikaina, **aberatsa**. Pello Zabala

Ermita eta Basoi gidari, sekulan egin ez zuen bezala, Baigorrin gaindi, itzuli **aberats** eta zoragarri bat hasten du, mendeetan zehar. Michel Oronoz

Euren berehalako betetasun **aberats** eta astuna uxatzea. Xabier Arregi

3 (adizlagun gisa)

Honen harira, errimak betidanik pobre eta **aberats** banatu izan ditugula datorkit gogora. Andoni Egaña

- Altzinoo indartsua: opariak emateko eta laguntza prestatzeko urtebete gehiago geratzeko esango bazenidate ere, pozik onartuko nuke, **aberatsago** itzuliko bainintzateke. Juan Kruz Igerabide

Eta zu izan zaitez **aberats** Efratan, ospetsu Belenen! Jose Antonio Mujika

Tailerreko nagusiak ematen zizkidan eskupekoekin, **aberats** sentitzen nintzen. Juan Kruz Igerabide

Aberats bizitzeak egoismoa areagotzen duenez, seme-alaben kopurua urritu egiten da eta urri horiek bizimodu hobea dute (eta alderantziz, darwinismoaren eraginez: gure odolekoek bizirik iraun behar dute). Edorta Agirre

Pedroren etxean pobreak izan ziren beti, baina inoiz ez zirenez **aberats** bizi izan, pobrezia ez zuten madarikaziotzat. Jon Maia

Handik **aberats** etorri zen. Pablo Sastre

Poliziaren kontratu batzuk bereganatzeko zoria ere izan zuen gainera, eta, azkenean, Dublingo egunkarietan merkatarien printze baten gisa aipatua izateko bezain **aberats** egin zen. Irene Aldasoro

4 (izen gisa)

Hamaika **aberats** poxpolin baino ez dituk! Urtzi Urrutikoetxea

Hi heure larrua arriskatzen bahabil, zer deabrurengatik ez du jarri behar bestek zerbait beretik? Contla **aberatsez** pil-pil zagok. Juan Garzia

Nahiago nuke egia balitz harako hura, zailago izanen dela **aberats** bat zeruan sartzea orratzaren uzkitik aharia bainoøø. Koldo Izagirre

Galtza zaharrekin bezala, haien puskez adabakiak egiten omen dizkiete Bostongo edo Miamiko **aberatsen** seme-alaba eriei. Aingeru Epaltza

Kolonialismoa bat eta bakarra baitzen munduan, **aberats** eta handikien lukurreria aseezinaren ondorio zuzena, tokian tokiko itxura hartu arren. Xabier Montoia

Gero pentsatu zuen egun haietan ez zegoela **aberatsik** bat ere herrian, eta bai aldiz soldadu talde ingeles bat, Pepponeren gizonekin batera iritsia. Koldo Biguri

Aberats gutxi behintzat bertan bizitzen. Unai Iturriaga

Asko dira, dentista famatuekin kontentu gelditu ez eta, gure aitarengana etorritakoak, eta **aberats** dirudunak ere ez gutxi. Patziku Perurena

Amerikar milioidunak iruditzen gatzaizkie eta, oraindik hala izatetik urruti baldin bagaude ere, Estatu Batuetatik datozkigun gure diru sarrerek **aberatsen** artean kokatzen gaituzte hemen. Ramon Etxezarreta

Aberats batek bere ondasunetatik egunero plazer berriak eta atsegin berriak atera ditzakeen bezala, hala Héraclius doktoreak ere, eskuizkribu guztiz preziatu haren jabe zenez, uste ez zituen aurkikuntzak egiten zituen hartan irakurtzen zuen bakoitzeko. Josu Zabaleta

-Eta? -nik, begirada **aberats** gizenen bati kenduriko 1935eko Citroën 11CV dotore haren larru ilunezko eserlekuetan. Edorta Jimenez

Oihal finezko gona oso bat eta apaingarrizko mantelina berde bat hartu zituen Doroteak bere fardeletik, eta bitxi batzuk eta lepokoa kutxatxo batetik, eta laster jarri zen apain-apain, **aberats** handikietako andere bat zirudiela. Patxi Ezkiaga

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hura **aberats** alaba zen eta ni, aldiz, emaginaren alaba soila, baina aski ongi akometatzen ginen. Elena Touyarou

Tira, ez zen perla bat, baina seguraski **aberats** familia guztien hasieran egon da antzeko harrapakeria, gero, belaunaldiak pasa ahala, dena zelofan fin batean bilduta geratzen den arren. Xabier Mendiguren Elizegi

Aberats usainik ez, hortaz. Karlos Zabala

6 ***aberats berri*** *adkor*

Ia ordu erdi igarota, hesola bat ematen zuen gona gorri motzeko neska bat agertu zitzaigun eta **aberats** - **berri** kutsuko dekorazio dotore-uste ezaineko bulego bateraino eraman gintuen. Anjel Lertxundi

Xapeldunen kopako final-erdietan Monako-k jo du Chelsea, talde ingelesa Errusiar **aberats berri** batek erosia 2 eta 2 eginez Londresen partida irabazirik Monako-n. Herria

Montse mespretxatzen nuen, baita Montsek sinbolizatzen zuen guztia ere: **aberats berrien** eta kontsumo gizartearen eredua, azken finean. Joan Mari Irigoien

'V' letra kapitularrez hasi du troskista zahar eta **aberats berriaren** izena. Urtzi Urrutikoeetxea

Aluan ez zen gerraren **aberats berri** haietarikoa, ezpada "merkatari baten seme merkataria", berak esatea atsegin zuen bezala. Patxi Zubizarreta

Frantziskoren jatorriak (**aberats berrietakoa** zen) eta gizarte-egoerak eragin zuzena dute haren bokazioan eta bizi-proiektuan. Askoren artean

Itsas bulebarreko **aberats berriek** , artean gutxi baina oso aberatsak baitziren, ez zuten berehalakoan amore eman: behar zena emanen zuten, bai, baina eliza Marignan plazan eraiki beharko zen. Monika Etxebarria

Ezkurdin gora ondoren, banku guztiak dauden kaletik, aberats zahar guztiak bizi diren kaletik, **aberats berri** guztiek bizi nahi duten kaletik. Unai Iturriaga

7 ***aberats okitu*** oso aberatsa.

Hor aurkituko dugu lurjabe zabar arduragabea, etxekoandre goganbehartsua, gazte festazale txoriburua, lurjabe zekena, administratzaile alferra, funtzionario ustela, agintari zorrotz errukigabea, **aberats okitua** , burokrata grisa... Jose Morales

Diruz jositako **aberats okituaren** bizitza egin zuen Felixek hamasei urte bete zituen arte. J.M. Olaizola "Txiliku"

Peterrek, herrian eta partikulazki familian, **aberats okituaren** fama zeukan. Itxaro Borda

Ezkertiar dauka bere burua, nahiz **aberats okitu** bat duen hartua lagun eta president ordetzat, nahiz hitzemana duen ere ez dituela Brasiliaren zorrak ukatuko. Herria

Behar gorrian jaio, eta **aberats okitu** hil zen. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aberats bat (61); **aberats batean** (14); **aberats batek** (26); **aberats batekin** (20); **aberats bateko** (8); **aberats baten** (46); **aberats batzuen** (6); **aberats batzuk** (7); **aberats berri** (6); **aberats den** (7); **aberats edo** (6); **aberats egin** (15); **aberats eta** (122); **aberats eta pobreen** (17); **aberats izan** (10); **aberats okitu** (9); **aberats okitua** (12); **aberatsa baitzen** (9); **aberatsa da** (55); **aberatsa dela** (9); **aberatsa den** (14); **aberatsa eta** (71); **aberatsa ez** (7); **aberatsa izan** (54); **aberatsa izan da** (15); **aberatsa izango** (7); **aberatsa izanik** (6); **aberatsa naiz** (19); **aberatsa zara** (6); **aberatsa zela** (8); **aberatsa zen** (38); **aberatsa zen eta** (9); **aberatsa zuen** (6); **aberatsago eta** (7); **aberatsagoa da** (9); **aberatsagoa izan** (8); **aberatsagoak dira** (6); **aberatsak dira** (17); **aberatsak ere** (7); **aberatsak eta** (26); **aberatsak eta pobreak** (7); **aberatsak ez** (13); **aberatsak izan** (12); **aberatsak ziren** (8); **aberatsen artean** (10); **aberatsen arteko** (12); **aberatsen eta** (35); **aberatsen eta pobreen** (18); **aberatsena da** (9); **aberatsena eta** (10); **aberatsenak eta** (7); **aberatsenetako bat** (6); **aski aberatsa** (7); **baino aberatsago** (10); **baino aberatsagoa** (14); **bat guziz aberatsa** (8); **bezain aberats** (10); **bezain aberatsa** (24); **biziki aberatsa** (8); **da aberatsa** (15); **egitarau aberats** (11); **egitarau aberatsa** (11); **emakume aberats** (8); **eta aberats** (56); **eta aberatsa** (62); **eta aberatsa izan** (8); **eta aberatsago** (12); **eta aberatsagoa** (10); **eta aberatsak** (41); **eta aberatsek** (7); **eta aberatsen** (27); **eta aberatsen arteko** (12); **eta aberatsena** (12); **ez da aberatsa** (6); **familia aberats** (16); **gizon aberats** (22); **gizon aberatsa** (10); **guziz aberatsa** (21); **hain aberats** (7); **hain aberatsa** (16); **herri aberats** (7); **herri aberatsen** (6); **herrialde aberats** (12); **herrialde aberatsak** (11); **herrialde aberatsei** (7); **herrialde aberatsek** (26); **herrialde aberatsen** (16); **herrialde aberatsen eta** (7); **herrialde aberatsenek** (7); **herrialde aberatsetako** (11); **herrialde aberatsetan** (25); **hiztegi aberatsa** (7); **izugarri aberatsa** (7); **jende aberatsak** (7); **lan aberatsa** (6); **liburu aberats** (11); **nekazari aberats** (6); **ni aberatsa** (19); **ni aberatsa naiz** (16); **oso aberats** (8); **oso aberatsa** (46); **oso aberatsa da** (9); **oso aberatsa izan** (7); **oso aberatsa zen** (11); **oso aberatsak** (18); **pobreen eta aberatsen** (8); **sail aberatsa** (9); **zinez aberatsa** (9)

---

aberatseria *iz* jende aberatsa.

Napoleon-i berari eta gehiago oraino haren andreari ainitz gustatzen ziotela Miarritzeko itsas-bazter hori eta heien ondotik beraz **aberatseria** gaitza horrat abiatu zela, hek bezala egiteko nolazpait...! Herria

---

aberatsgarri ik **aberasgarri**.

---

aberatstasun ik **aberastasun**.

---

abere *(ETCn **8.510** agerraldi)* **1** *iz* ugaztun nagusia, piztia ez dena, eta eskuarki baserrian lanerako edo janaritarako erabiltzen dena. ik **azienda**.

Zuhaitzei buruz ere mintzatu zen, nola Libanoko zedroez hala horma-harrietan ernetzen den itze belarraz; orobat, **abere** , hegazti, narrasti eta arrainei buruz ere. Elizen arteko biblia

Aurpegiera gogorreko emakume handi bat zen, baina ongi egina, indartsua eta osasuntsua, baserritar emakume sendoaren itxura betekoa, erdi **abere** erdi emakume. Josu Zabaleta

Urez beteko da haran hau eta edan ahal izanen duzue bai zeuek, bai zuen **abere** eta zamariek. Elizen arteko biblia

Bitartean, lebitarrek larrutu egiten zituzten eskainitako **abereak** . Elizen arteko biblia

Emakumeak eta haurrak gatibu hartu zituzten gudariek, eta **abereak** lapurtu. Elizen arteko biblia

Isur-opari eta elkartasun-oparietako **abereen** gantzak ere erre behar izan zituzten. Elizen arteko biblia

-Indarkeria erabiliz -eta indarkeriak indarkeria ekartzen du beti- ehun **abere** salbatzea lortzen badugu baina gizon bat galtzen, eta, arrazoibidea erabiliz, ehun **abere** galdu baina gizon bat galtzea eragozten badugu, zure ustez zer da hobe: indarkeria ala arrazoibidea? Koldo Biguri

Abereen akainak eta zorriak hiltzeko. Berria - Gaiak

Abereentzako botika batek (*diclofenac*-ek) hiltzen zituen putreok. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hain da **abere** sentibera eta argia, izan ere, zaldia. Patziku Perurena

Abere burutsua, bere aldetik, zer egin behar zuen ulertu balu bezala, otzan joan zen nagusiaren atzetik, irrintzi txikienik ere egin gabe. Karlos Zabala

Bazekien zein gogoko zituen bere emazte zenak **abere** basa haiek, **abere** basak oro. Imanol Zurutuza

Nola gizakia **abere** soziala edo lagunkina den eta biziak eskatzen dizkion baitezpadako guztiak ez dituen bere etxeko soilekin bereganatzen ahal, behar izan du, elkarretaraturik hobeki bizitzeko, anitz etxe elkarretara bilduz herria sortu. Piarres Xarriton

Gizon zaharrak gomutara dakartza **abere** larriak eta **abere** xeheak zaintzen zituztenen arteko liskarrak. Pablo Sastre

Abere handi eta txiki, zaldi eta gurdi, eta giza esklabo. Elizen arteko biblia

Badela oraino zernahi jende, bere indarren eta ausartziaren erakusteko, ikusgarri publikoetan eta pribatuetan zezenekin eta beste **abere** basekin jostatzen denik. Piarres

Xarriton

Itsasoaren zurrumurru taigabearen oskola apurtu eta gero bereiz zitzakeen soinu bakarrak lehorreko **abere** gautarrek beren harrapaketa eta ehiza saioetan egindakoak ziren, damurik. Xabier Mendiguren Elizegi

Burugogorkeriaren sinbolo eta agerbiderik zabalduena mandoa da, oso **abere** argia. Xabier Olarra

Zaldia hain basaki akuilatu zuen non, hara heltzean **abere** gaixoak bere burua lurrera bota baitzuen, hats bahiturik. Elena Touyarou

Isiltasuna ez zen atertu gelan, isiltasunak hantxe segitu zuen, **abere** zaurituak bezala kiribildua, txori arinak bezala gora eginez hegan. Felipe Juaristi

Abere gizendu, bildots eta baliozko gauza guztiei. Elizen arteko biblia

Abere lagunkina dela gizakia, edo, Aristotelesen hitzekin erraiteko, *Zôon politikon* garela gutarik bakoitza. Piarres Xarriton

Herritarrei pregoi baten bidez jakinarazi zien laneko **abere** guziak, mandoak, astoak, eta bereziki idiak, alde bat haren meneko zirela, orga eta karroak bezalaxe. Elena Touyarou

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dena esateko -eta **abere**-sen hain primario hori azaldu beharrak lotsatu egiten nauelarik ere-, aitortu beharra dut jatea eta edatea bezalako behar oinarrizkoa ase ondoren fisiologiaren beste agindu batzuk bete nahiak eraman ninduela ohera. Ramon Saizarbitoria

Jaz holako zerbait ja aipatua zuten eta iragan aste hortan gehiago, baditake aurtengo feria azkena izan den molde hortan muntatu dena, hain xuxen **abere** hazkuntza sail horri buruz. Peter, eskaileraren ondoan zain geratua baitzen, urduritzen hasi zen, eta **abere** hezitzaile baten gisan sartu zen berriro gelan, gerriko uhala eskuetan zuela. Herria

Egun gutxi barru, Daniel-ek hiriburura lekutu behar izan zuen, **abere**-tratu bat zerratzeko. Juan Garzia

Artean ez zuten **abere** tripaz egindako lau hari haiek -lau golde-mutur mastaren gainetik tenkatuak baliraxe-, musika hazia ereiten. Felipe Juaristi

Haserreak ito behar zuen, eta gizonei eraso ezinik, betirako gorrotoa eta erruki gabeko gerra deklaratu zien **abere** mota guztiei. Josu Zabaleta

Izan ere, egun soilik 12 landare eta 14 **abere** espezietatik ateratzen da munduko janarik gehiena. Berria - Gaiak

Isiltasunaren eremura bidaltzen zituzten, isiltasun lodira, odol eta itzalez jositako isiltasunera, **abere** itxura zuen isiltasun basatira. Felipe Juaristi

Maitasun jeloskor eta erresumindu bat zion; dagoeneko ez zen lehengo sinpatia txeratsu eta lotsati hura, hain gozoa; **abere**-maitasun bat zen orain. Josu Zabaleta

Izadi bizigabean, edo **abere** bizitza besterik ez duenean, ez dugu sentsuen arabera baldintzatutakoa baino beste ahalmenik pentsatzeko oinarririk aurkitzen. Ibon Uribarri

Berandaren maldan bizpahiru **abere-bazka** poltsatto zeuden eta bizkar-zakuan sakatu zituen. Itxaro Borda

Hormona sintetikoz zein **abere** irinez hazi urde gurintsuak. Itxaro Borda

Zure aldera biltzen duzu uztartu idiak edertzen dituen **abere**-estalki brodatua. Itxaro Borda

Halaber erakusten zituzten saltzeko zituzten ardi larruzko xamarrak, abarkak, makilak, **abere** joareak, tabako zakutxoak, ganibetak. Elena Touyarou

Herri eta auzune askotan, gaurko egunez ohitura zen, etxeko **abere**-aziendak hartu eta, sokatik trailan, itzuli bat edo beste -auzo batzuetan hiru eta zazpi ere bai- emanaraztea; hori dena, aziendak gaitzetik eta ezbeharretatik libratzeko. Pello Zabala

Abere-taldeak ere harrapatu zizkieten: berrogeita hamar mila gamelu, berrehun eta berrogeita hamar mila ardi, bi mila asto. Elizen arteko biblia

Artalde eta **abere**-taldeak ere eskuratu zituen. Elizen arteko biblia

Abere-bordetan ere sartu ziren, ardi eta gamelu ugari lapurtuz. Elizen arteko biblia

Dolorezko **abere** auhenak urratu zuen oihanaren bakea. Itxaro Borda

Gateko jendeak, bertako jatorrikoak, hil egin zituen, haiek **abere**-lapurretara etorri zitzaizkielako. Elizen arteko biblia

Kutsatutako **abere** etxalde guztiak itxi ditu Amsterdamek, eta Europako Batzordeak ikerketa hasi du, okela kutsatuta dagoen eta kate komertzialera iritsi den argitzeko . Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etxe-**abereak** eta basa animaliak aztertu dituzte, birusaren zantzuen bila. Gizakiak, berriz, adimena du, eta horrek lehen mailako giza **abere** egiten du; gehiago gozatzen du bizitzaz, baina, aldi berean, zorigaitzak ere mila aldiz gogorragoak dira. Berria - Gaiak

Gure garaiko giza **abere** lar logozentrikoak oso erraz berdintzen ditu esana eta izana, hau esan duzu eta, beraz, halakoa zara. Askoren artean

5 ***abere azoka***

Gaur egun auzo hortan dagon munduko **abere azoka** haundiena (Liniers deitzen dena) bisitatu ahal izan dugu. Herria

Pont Neuf kalearen mutur batetik bestera, iraulki orgak karga husten ari ziren, galtzadaren bazterretan jarrita, zaldiak geldirik eta elkarren ondo-ondoan lerrokatuta, **abere azoka** batean bezala. Karlos Zabala

6 ***abere beltz*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Dena den Konik zaldietan **abere beltzak** edo oso ilunak ez dira arraroak. ETC-entziklopedia

7 ***abere buru*** abere banakoa.

Behi burtxoratuaren gaitzak jo bi **abere buru**, sei eta zazpi urteko behi gorriak, agertu dira Nafarroako mendialdean, eskualde hortan agertu diren bi lehenak. Herria

Orain arte, aztertu **abere buruetarik** (150 egunean) batek ere ez du eritasunaren hatzik Eusko Jaurlaritzaren osasun zerbitzuek diotenaz. Herria

Abere buruetan, azken lau urteetan, 2000ko bat behi gutiago kondatzen da Bizkaian, 5000 ardi gutiago eta 6000 xerri gutiago. Herria

Zentro horren inguruan birarazten badira bi **abere-buruak**, parterik luzeenak zirkulu handiagoa trazatuko du, eta parterik motzenak txikiagoa. Santiago Iruretagoiena

Delako laguntzak hitzemanak dira alabainan saldu diren zazpi hilabetez goitiko **abere buru** gazteentzat, Euskal-Herrian despeitzen direlarik lau edo sei hilabete arte hortan. Herria

8 ***abere hazkuntza***

Horiek hola, jaz holako zerbait ja aipatua zuten eta iragan aste hortan gehiago, baditake aurtengo feria azkena izan den molde hortan muntatu dena, hain xuxen **abere hazkuntza** sail horri buruz. Herria

9 ***abere-hiltzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Serbian eta Afganistanen egin bezala, herritarren hilketa bultzatuko al du? Inori galdetu al dio? Zergatik jokatzen du AEBen interesen azpian kokatutako **abere-hiltzailearen** rola? ETC-prentsa

Zer behar da **abere-hiltzaile** ona izateko? ETC-prentsa

Gorpuaren ondoan eserita nengoen oraindik, **abere-hiltzaile** baten gisa odolez zikindurik, atxilo hartu ninduteneen. ETC-literatura, saiakera

Garaipena hori bazen, inork ere ez zuen **abere-hiltzaileen** hekatonbe hura aipatu nahi, eta ez hura ospatu nahi ere. ETC-literatura, saiakera

Bestela okerrago, bigarren mazokada jaso beharko baitzuen segidan, baita hirugarren eta are laugarrenik ere, **abere-hiltzaileak** ez baldin bazuen guztiz asmatzen kolpe berri bakoitzarekin. ETC-literatura, saiakera

-Abere-hiltzaileek egin ohi duten modu berean -gaineratu zuen Fabianek. ETC-literatura, saiakera

10 ***abere lapur***

Gabrielekin egindako orduak birpasatu eta ezin dut gogoratu, hainbeste hitzen artean, bakar bat intimorik; "hor nonbait","kanpo horietan" gertatzen ziren gauzez baizik ez zigun hitz egin; ehizaz hitz egin zuen, edo laborantzaren egoeraz, edo munduak egindako aldaketaz, edo **abere lapur** batzuekin gertatu zitzaionaz. Bernardo Atxaga

11 ***abere lapurreta***

honen seme Zabad, honen seme Xutelah. Ezer eta Elead ere Efraimen ondorengoetakoak ziren, baina Gateko jendeak, bertako jatorrikoak, hil egin zituen, haiek **abere-lapurretara** etorri zitzaizkielako. Elizen arteko biblia

12 ***abere larri***

Gizon zaharrak gomutara dakartza **abere larriak** eta abere xeheak zaintzen zituztenen arteko liskarrak, behin baino gehiagotan balazoka amaitu zirenak, batez ere betzainek Montanako gizon arriskutsu hura kontratatu zutenean... Pablo Sastre

13 ***abere mutu*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Gainera, une larrietan esklaboak armadan erabiltzen ziren eta, borrokarako **abere mutuak** izanik, erraz kontura zitezkeen ez zegoela eragozpenik bira emateko eta beren jabeei aurka egiteko. ETC-literatura, saiakera

Amak, Lope eta Ana Irene ohe berean harrapatu zitueneko aste hartan, ez zion hitzik trukatu, eta zigor eramangaitz hura txintik esateke sufritu zuen Lopek, **abere mutuaren** gisa. ETC-literatura, saiakera

Judeako kristauak, **abere mutuak** baino abereago zareten horiek, entzun ezazue: ongi heldu da zeuen burua bildots-gisa figuratua, egiatan artalde zaretelako. ETC-literatura, saiakera

14 *abere-talde*

Artalde eta **abere-taldeak** ere eskuratu zituen. Elizen arteko biblia

Zoaz **abere-taldera** eta ekarri bi ahuntz guri, eta jaki goxoa prestatuko diot aitari, atsegin duen bezalakoa. Elizen arteko biblia

Norbait apaiz izan nahian, bere **abere-taldeko** zekor bat eta zazpi ahari dakartzala etortzen bazaizue, berehala egiten duzue gezurrezko jainko horien apaiz. Elizen arteko biblia

Jakob, berriz, Sukot aldera joan zen. Han etxea eraiki zuen beretzat, eta oihal-etxolak **abere-taldeentzat**. Elizen arteko biblia

15 *abere-trakzio* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Munduan, 28 bat milioi dira traktorea erabiltzen duten nekazariak, 250 milioi **abere-trakzioa** erabiltzen dutenak. ETC-literatura, saiakera

Abere trakzioa abereak zamak garraiatu, gurdiak eraman, lursailak goldatu eta errota eta noriak mugiarazteko tekniken multzoa da. ETC-entziklopedia

16 *abere xehe*

Horrela aginduko diozu israeldarren elkarteari: Hil honen hamarrean har beza bakoitzak familia eta etxe bakoitzeko **abere xehe** bana. Elizen arteko biblia

Gizon zaharrak gomutara dakartza abere larriak eta **abere xeheak** zaintzen zituztenen arteko liskarrak, behin baino gehiagotan balazoka amaitu zirenak, batez ere betzainek Montanako gizon arriskutsu hura kontratatu zutenean... Pablo Sastre

17 *etxe-abere*

Eta denengandik ihes egiten zuen arren, Frantziskoren eskuetan eta magalean **etxe-abere** baten konfiantzaz babesten zen. Askoren artean

Etxe-abereak eta basa animaliak aztertu dituzte, birusaren zantzuen bila. Berria - Gaiak

Haziaren eta ondorengo fruituaren arteko loturak, nekazaritzako lehenengo egutegiek eta **etxe abereen** ugaltze zikloak egunero eta zuzenean ikusteak eraman zuten giza primatea ohartzera arrek zer betekizun zuten ugalketan, ordu arte ez baitzekien. Luis Elberdin

18 *giza abere* *(orobat **gizabere**)*

Krotonako Alkmeonek **giza aberearen** ezaugarri bereizgarrien artean kokatzen du pentsamendua. Askoren artean

Hizkuntza dela **gizaberearen** komunikabide propioa eta lehena. Piarres Xarriton

Badira haragi grinen irudi zoragarriak **gizabereon** unibertsoan, hitzak arrunt itsusten dituenak. Patziku Perurena

Gizabereak bere muinean gorde duen gaiztotasun geldo eta zakar hori. Patziku Perurena

Zein klaustrofobikoa den orotariko **gizaberez** beterekiko autobusa. Unai Iturriaga

Zeren **giza abereen** artean, hirietan, familietan, gehiago denak lortzen du gorentasuna eta aginpidea. Askoren artean

19 *gurdi-abere* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Labore-soroetan lan eskasa zegoen garaian **gurdi-abereen** kargu hartzen zuen Nicasiok, eta, berotik ihesi bera ere txoperara joaten hasi zenez gero, noiz-noiz hitz aspertuak egiten zituen harekin, aziendak bazkatzen zituen bitartean. ETC-literatura, saiakera

Goldea eta **gurdi-abereak** erosi. ETC-literatura, saiakera

Ia **gurdi-abere** gisa hartuak dira eta langile atzerritarrekin ordezkatuak, are lan baldintza okerragoekin. ETC-entziklopedia

Akuilua da makila mota bat, luzea, ezten zorrotz bat duena punta batean, eta **gurdi abereak** xaxatu eta gobernatzeko erabiltzen dena. Akuilu-eztena esaten zaio punta zorrotz horri. ETC-entziklopedia

Nahiz eta gizonek normalean soroak goldatu eta **gurdi-abereak** gidatzen dituzten, emakumeek egiten dute oinarrizko elikagaiak ereitearekin, jorratzearekin, ongarritzearekin eta biltzearekin lotutako lan gehiena, hala nola arroza, garia eta artoa, zeinak landa-populazio txiroaren dietaren % 90 baino gehiago baitira. ETC-entziklopedia

Antza denez, horren efektu bat izan zen zaldia gero eta gehiago erabili zela golde-lanetarako eta **gurdi-abere** gisa, idiaren ordez, nahiz eta lehenengoa zerealez elikatzen zen, eta ez saralez -bigarrena bezala-, askoz ere garestiagoa izan arren. ETC-literatura, saiakera

Baina bizimodu baldarragoa eta, jakinduria maitatu gabe, ohore zalea baldin badarabilte, agian noizbait mozkorretan edo beste axolagabekeriaren batean, bien **gurdi-abere** mutiriek arimak zaintzarik gabe harrapatu eta, gauza bererako elkartuz, herri xehearentzako aukera zoriontsuena dena aukeratu eta burutzen dute. ETC-literatura, saiakera

20 *lagungarriko abere*

Gogorarazten dizugu, Agirre jauna, Espainiako kartzeletako araudiak garbiki esaten duela debekatua dagoela internoek **lagungarriko abereak** edukitzea. Koldo Izagirre

21 *lor abere* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Horretarako erabiltzen diren abereei **lor-abere** deitzen zaie; horietan arruntenak zaldiak, mandoak, astoak eta idiak izan dira Euskal Herrian. ETC-entziklopedia

Arrazoi horiengatik, Islamaren legeari jarraitzen dioten zaharrak erresuminduta daude guztiz eta bizkarra ematen diote langilez, **lor aberez**, zurez, lurrez eta harriz josiriko anabasa hari. ETC-literatura, saiakera

Emakumezkoek egiten zituzten, gizonezkoek edo **lor-abereek** egin behar izanez gero etxe kontsignatarioentzat garestiagoak izango liratekeelako. ETC-prentsa

Lor-abereek, zamariek, zelako abereek edo solte doazen abereek eskuin aldeko bazterbidetik zirkulatu behar dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Garraioa, berriz, goitik behera aldatu zen Europako **lor-abereei** esker (zaldiak eta mandoak). ETC-zientzia, zuzenbidea

22 *zama-abere*

Mikel Strogoffek, ordea, ez zuen izango ez kanoirik, ez zaldizkorik, ez oinezkorik, ez **zama abererik**. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abelgorria nahiz abere (4); **abere bat** (16); **abere batek** (6); **abere baten** (7); **abere edo** (5); **abere eta** (43); **abere guztiak** (9); **abere handi** (8); **abere handi eta** (4); **abere handi nahiz** (4); **abere hildegia** (4); **abere hildegiko** (4); **abere hiltegia** (4); **abere horiek** (5); **abere jende** (4); **abere kumeak** (6); **abere mota** (6); **abere primaketa** (6); **abere talde** (14); **abere taldeak** (9); **abere txiki** (5); **abere xehea** (6); **abereak ariko** (8); **abereak ariko dira** (7); **abereak bezala** (6); **abereak dira** (4); **abereak ere** (10); **abereak eta** (38); **abereak ez** (7); **abereak hil** (6); **abereak hiltzen** (9); **abereak hiltzen diren** (4); **abereek ere** (5); **abereen artean** (8); **abereen eta** (7); **abereen primak** (4); **abererik ez** (6); **abererik gabe** (4); **angelu abere** (5); **angeluko abere** (9); **baita lehen abere** (4); **bere abere** (4); **beren abereak** (6); **beste abere** (8); **bi abere** (5); **den abere** (5); **duen abere** (4); **edo abere** (9); **edo abereak** (4); **ehun abere** (4); **erre oparietako abereak** (4); **erre oparitarako abereak** (5); **eta abere** (60); **eta abere guztiak** (5); **eta abereak** (61); **eta abereei** (7); **eta abereek** (10); **eta abereen** (17); **eta abererik** (4); **etxeko abere** (6); **euskal herriko abereak** (5); **ez abererik** (6); **giza abere** (8); **giza abereak** (4); **giza abereareen** (8); **gizaki eta abere** (10); **gizaki eta abereak** (6); **gizakiak eta abereak** (12); **gure abereak** (4); **herriko abereak** (5); **hildako abereen** (5); **itsas abere** (4); **kantonamenduko abereen** (5); **kantonamenduko abereen primak** (4); **lapurdi angelu abere** (5); **lehen abere** (11); **lehen abere kumeak** (6); **nahiz abere** (10); **nahiz abere xehea** (4); **ondasun eta abere** (5); **oparietako abereak** (4); **oparitarako abereak** (8); **ziren abereak** (5); **zuen abere** (5); **zuten abere** (4)

---

aberekeria *(orobat **abrekeri**) iz adkor* ekintza basatia, berez abere bati dagokiona; aberetasun gaitzesgarria.

Bizitza fisikoa luza baitzitekeen zuhurtziaren bidez eta laburtu zuhurtziarik ezaren zenbait formaz, heroismotik hasi, erokeriatik igaro eta **aberekeriaraino** iritsiz. Iñaki Mendiguren

Zoazte zuen kortara eta arren egin Jaungoikoari barkatzeko zuen **aberekeriagatik**! Koldo Biguri

-Zeuen eta zuen **aberekeriazko** gorrotoaren erdian zuetako bakoitzak eskuaz egin duzuen gurutzea dago. Koldo Biguri

---

abereki *(orobat **abreki**)* **1** *izond* abereak bezala aritzen dena.

Lehenengoa kanpoko gizakia da, **aberekia**, zentzukoia. Joan Mari Lekuona

Nolako **aberekia**, nolako **abereki** ederra! -errepikatzen zuen Claudek, bekaizkeriaz eta mirespenez Marjolin ahotan hartuta-. Karlos Zabala

Ergela zarela, **abereki** hutsa zarela. Josu Zabaleta

2 *adlag irud* abereen eran, itxuragabeki.

44ko azaroan tirokatuko zuten apez bat **abreki** gaizkitua izan zen, lagun zenbaitekin block-eko zoko batean otoitzean ari harrapatu zutelakotz. Marzel Etxehandi

Photomatona eskuan hartu nuen eta **abereki** makilatu neskatila moskota munaka horailari Pierrak zer atzematen zion eskatu nion neure buruari. Itxaro Borda

---

aberekoi *izond* aberezkoa, abereei dagokiena.

Oraingo judumasoikeria **aberekoi** honek ari duen masakre humanista politagoa balitz bezala! Patziku Perurena

Kultura **aberekoia**. Patziku Perurena

---

aberekume *iz* abere baten umea.

Gauerdian Egipto erditik igaroko naiz: egiptiar lehenseme guztiak hilko dira, errege-aulkian esertzen den Faraoiaren lehensemetik hasita errotan ari den neskamearen lehensemeraino -eta berdin lehen **aberekume** guztiak ere-. Jose Antonio Mujika

Eta **aberekumeek** beren sortzaileei zerbait zor dietela pentsatzen al dute? Ez, noski. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

aberetasun *iz* aberearen izaera, abere denaren nolakotasuna.

Beste batzuek galtzak eramaten dituzte, eta ilea mototsa sinple batean biltzen dute, baina musu eman eta munduko horma guztiak behera jausten direla sentiarazteko **aberetasuna** dute. Lander Garro

Arimak gorputz organiko batekin duen komunitatearen ahalgarritasunaz, h[au] d[a], **aberetasuna** eta arimaren egoeraz gizakiaren bizitzan. Ibon Uribarri

Substantzia pentsatzailea materian dagoen bizitzaren printzipio gisa aurkezten du, h[au] d[a], arima (anima) gisa eta **aberetasunaren** oinarri gisa; honek, espiritutasunaren bidez zedarriztatua, hilezkortasuna eskuratzen du. Ibon Uribarri

Guztiak abiatu ziren gizatasunetik **aberetasunaren** bidean atzera egiten. Iñaki Mendiguren

Gainerako guztiak bezalakoxea da; hobea, besteak baino hobea, zeren ez baitu beldurrik adimenaren argiarekin lotsaren gorria gizonaren **aberetasunean** agerian jartzeko, hark ez ikusteko beti begiak ixten baditu ere. Josu Zabaleta

---

aberetegi ik **abeltegi**.

---

aberetiar *izond* aberezkoa, abereei dagokiena.

Presondegi hartako *Guardias de Asalto* deitu zaintzaileek, zigorkatze (ukalditze) **aberetiarrez** kastigatzen zuten Galicia-tar burutik egiten zuen gaixo bat. Jokin Urain

---

aberetu, aberetzen da/du *ad* abere bihurtu, abereen erak hartu.

Jendearekin harremanik izan ezean, **aberetu** egiten da gizakia. Jose Morales

Utopiaren abenturak gizakiago egiten gaituen aldi berean, El Doradokoak **aberetu** egiten gaitu, Colonek -giza irrikak- deskubritutakoa konkistatu behar pragmatiko bezain basatia ahalbideratzeko asmatzen baitira urrearen inguruko sineskeria eta fabulak. Anjel Lertxundi

Mirande erromantikoak esaten zuen, aberastasuna ez dela izatez txarra, baina (diru, ohore, plazer) gose asegaitzak **aberetzen** duela jenderik gehiena. Patziku Perurena

Gizarte **aberetu** honetako iskanbilari bizkar eman, eta atzeko leihora atera naiz, gauen gauerdian. Patziku Perurena

Oraindik, nola esango dut, baduzu pertsonatik zerbait, nahiz dagoeneko ederki **aberetua** zaren. Matías Múgica

Pette eta Arnalten Plazervillen kokatzeko errabia ez zuen ulertzen, non ez ziren bi gizonak arrunt **aberetuak**. Itxaro Borda

Beren buruarekin zer egin ez dakiten hirikume burgomarxistak edo bordarikume presaka hiritartzean **aberetuagoak**. Patziku Perurena

---

aberetxo *iz adkor* abere txikia.

Ederki! Bota nuen, bai jauna! Baina galdurik bezala ikusi nuen geratu zitzaidala andre hau etxean, errukiz etxean jasotzen diren jaberik gabeko **aberetxo** horietako bat bezala. Josu Zabaleta

Ez da zaila Lucy hamar urte barru irudikatzea: emakume lodi bat, aurpegian tristuraren ildoekin, modaz aspaldi pasatako arropekin jantzita, bere **aberetxoei** hizketan, otorduetan bakarrik jaten. Oskar Arana

Aberetxo kementsua eta ausarta zelako. Jesus Mari Mendizabal

Monikek zakila sentitu zuen bizkarraldean, nagiak kentzen ari zen **aberetxoa**. Eider Rodriguez

---

aberetzar *iz adkor* abere handia.

Aberetzar haiek gudari-taldeen artean banatuak zeuden. Elefante bakoitzaren ondoan mila gizon zeuden lerrotan jarriak, bular-sareak eta brontzezko bular-oskolak jantzirik. Elizen arteko biblia

Elefantearen azpira heldu, ezpata sartu eta hil egin zuen. **Aberetzarra**, ordea, gainera erori zitzaion eta hil egin zen Eleazar. Elizen arteko biblia

Gudari-taldearen erditik ausarki sartuz, lasterka joan zen **aberetzarragana**, ezker-eskuin jendea hilez eta bere aurretik etsaiak alde batera eta bestera bazterraraziz. Elizen arteko biblia

Hainbeste zaldi otzan, eta andereño ibiltari, eta herensuge, eta hegadun **aberetzar**, eta erraldoi, eta hainbeste ibilkizun entzun ere ez direnak. Patxi Ezkiaga

---

aberezain ik **abeltzain**.

---

aberezale *izond* abereen zalea dena.

Moroa, jitoa bezelaxe, **aberezale** amorratua duzu oraindik. Patziku Perurena

aberezko *izond* abereei dagokiena.

Hautamena sentsuzkoa da patologikoki afektatua den heinean (sentimenaren kausa eragileen bitartez); **aberezkoa** (*arbitrium brutum*) deitzen zaio, patologikoki behartua denean. Ibon Uribarri

Hautamen bat, hain zuzen, **aberezkoa** besterik ez da (*arbitrium brutum*) sentsuzko estimuluen bitartez, h[au] d[a] patologikoki baino ezin bada determinatu. Ibon Uribarri

Maitasuna goraipatu eta laudatu izan da, eta sexua, gure giza izaeraren alderdi **aberezkoa**, gutxietsi, kulpabilizatu eta zapaldu izan da. Luis Elberdin

Borreroa estasiatu egiten da eguzki gorenak, urkamendiko zur dizdizarian, oso banaka batzutan marrazten dituen filigrana erdi gotiko erdi **aberezkoekin**. Karlos Linazasoro

---

aberia 1 *iz* matxura.

Aberia ederra egin du motorrean. Berria - Kirola

Basamortuko Ekaitzera igorri zuen itsasontzian eta **aberia** ederra egin zioten buruan. Oskar Arana

Aberia handia izan al da? Pablo Sastre

Aberia dezentekoa zeukan, eta biharamunera arte ezin omen zuten konpondu. Rafa Egiguren

-Berez ondo ateratzen zait -hasi zen Julen, supituki gorri-gorri eginda, **aberia** hura justifikatu nahian-. Fernando Morillo

2 irud/hed

Eduri buruan **aberia** eragiteko puntuan egon haiz oraintxe. Aingeru Epaltza

Atzetik ama sartu zen, eta, nire **aberia** ikusi bezain laster, halaxe esan zidan, eskuak burura eramanik: [...]. Joan Mari Irigoien

-Aski mendean nago bai, berna hezurra hautsia eta ezin mugiturik; zaldun fededuna baldin bada berori, arren, ez biezat bizia kendu, **aberia** handia egingo du-eta, lizentziaduna bainaiz eta Elizaren lehen ordenak hartua. Patxi Ezkiaga

---

aberiatu *izond* matxuratua.

Gure agurea ere horrela dago, ordenadore **aberiatua** bezala, azkenean sehaska kantak abesten. Joseba Sarrionandia

---

aberiguatu, **aberigua(tu)**, **aberiguatzen** du *ad* ikertu, bilatu.

Victor Hugo hemendik pasa eta ia hirurogei urte geroago, 1902 urtean xuxen, Frantziatik desterratuta Donostian bizi den tipo politiko poeta-konspiratzaile bat, Frantzia Handiaren handitzaile handia, bazterrak harrotzen eta ahaleginak egiten hasi da, Victor Hugo Pasaian non bizi izan den **aberiguatzeko**. Koldo Izagirre

---

aberiguazio *iz* aberiguatzea, ikerketa.

-Nahi duzu horren inguruko **aberiguaziorik** egitea? Josu Landa

---

aberkide 1 *iz* aberri bereko pertsona.

Kartzelan hainbeste denbora eman duen **aberkide** bati eskua luzatu behar zaio. Javi Cillero

Jatorriz ezin euskaldunagoa zen **aberkide** batek prestatu zuen Puiko eta Bergarako likidazioa. Txillardegi

Armadak aginte demokratikoari erantzuten dio, eta ez ditu zanpatzen bere **aberkideak**. Berria - Mundua

Euskaldunak ere ezagutu zituen eta ahal zuen denbora guzia **aberkideekin** iragaiten zuen. Eneko Bidegain

Saseta batailoiko **aberkideek** jakinarazi zioten bizkaitarrari Gernika suak harturik zegoela. Lutxo Egia

Erregeak zerbitzatzeko gai denak jainkoak adoratu behar ditu! Baina guk, frantsesok, baina guk, nire **aberkideok**, arrastaka jarraitu behar al dugu, otzan-otzan, hede amorragarri horiekin lotuta? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez ditugu **aberkideak** barbaro odolzale batzuen eskuetan uzten ahal, hiltzeko lanjerrean, etxetik irteteko lotsaz. Xabier Montoia

Egoera larrian dira Ernest Hemingwayren **aberkideak** 1942ko honetan. Edorta Jimenez

Vladislav **aberkideak** beso batez lepoa inguratzen dio, kontsolamenduzko hitzak esaten dizkio, nik uste, eta beste serbiar biak ere negar mutu malko gabeko batean direla dirudi. Edorta Jimenez

Espetxeetako **aberkideok**, zuen esklabotza distiratsuaren egun bakoitza, Aberri Egun garbi, ernalkor eta etorkizun handiko egun bat da. Jokin Urain

Kafkaren obran daude haren koherentzia, egia eta ordenamendu soziala, eta ez idazle batek irakurle-mota jakin batentzat idatzi behar duela dioen uste baldar horretan, idazleak bere irakurle multzoaren **aberkide**, ideiakide eta talde bereko izan behar duela aldarri duen ergelkerian. Anjel Lertxundi

Konturatua nintzen, askotan ikusita, taxista errusoei ere -eta horiek, haatik, kunplitu beharko zituzten lan-ordu batzuk!- denboraren pasaerak halain gutxi inporta ziela nola beste etorkin inolako lanik ez zutenei eta **aberkide** dirudunen limosnatik bizi zirenei. Matías Múgica

Martha Gellhornek horren berri zehatza izango du, eta are zehatzago jakingo du bere **aberkide** militarren ahaleginaren berri. Edorta Jimenez

Jose Maria Arguedas ez zen ketxuatar **aberkideez** batere lotsatu. Txillardegi

---

aberkoi *izond/iz* abestiez, olerkiez eta kidekoez mintzatuz, aberria goratzen duena, aberriaren aldeko agertzen dena.

Noizik behin, soldadu izan nahi zuen nerabeak botatako esaldi **aberkoiren** baten ostean, norbaitek txalo doia jotzen zuen. Anjel Lertxundi

Kazetaritza **aberkoiaren** urrezko garaia ezagutzea tokatu zaigu zinez. Iñigo Aranbarri

Iskanbilak, manifestaldiak zeuden kaleetan, musika **aberkoia** gogotik alde guztietan. Josu Zabaleta

Halako batean, plazan bildutako gazteak, eta ez hain gazteak, hiriko kaleetan barreiatzen hasi ginen, zozabarrak zeruan bezala, orain kantuan, orain kontsigna **aberkoiak** oihukatuz. Anjel Lertxundi

Haren esanetan, bere "eginbehar **aberkoia**" betetzen baino ez zuan ari. Mirentxu Larrañaga

Kixotea -esan zidan Menard-ek- oroz gain liburu atsegin bat izan zen; orain, berriz, topa-egite **aberkoietarako** egokiera da, harrokeria gramatikalerako, luxuzko argitalpen lizunetarako parada. Juan Garzia

Euskaltasun **aberkoi** hori ezin da ulertu ez Europako mugimendu nazionalista garaikideak aintzat hartu gabe ez aurreko mendeetan izan ziren jarrera eta liburu euskaltzaleak kontuan hartu gabe. Anjel Lertxundi

Koma bakar batek esaldi akrata bihurtzen du munduan den esaldirik **aberkoiena** (allons, enfants de la Patrie versus allons, enfants, de la Patrie). Anjel Lertxundi

Nor munduan zuek baino **aberkoiago**, autozentratuago, xuxenago eta xantuago? Iñaki Segurola

Uste zuen espainiarra, zientziarako nahiz zibilizaziorako ezgauza izanagatik, **aberkoi** sutsua izango zela behintzat, eta ez zen halakorik. Josu Zabaleta

---

aberrante *izond* itxuragabea, zentzugabea, logikoa denetik hurruntzen dena.

Neurri **aberranteak** eta antzeko aldaera itxuragabeak alde batera utzita, zenbat eta handiagoa eta ikusgarriagoa izan zakila, hobeto. Karlos Zabala

Ezta hizkuntza sakralizatzen ez duen pertsona etikoki **aberrantetzat** hartuko dudanik ere. Berria - Euskal Herria

---

aberrazio *(ETCn **386** agerraldi)* **1** *iz* egite, gertaera edo esate itxuragabea, logikoa denetik urruntzen dena.

Bi topaketa horietan gatazka bat gerarazi egin zen, termino filosofikoetan erlijiozko errito eta mitoei adierazpide teologikoa emateko ekintza baketzailearen bidez; baina [...] ekintza-bide hori, bi kasuetan, **aberrazio** bat izan zen, egia espiritual eta intelektualaren arteko erlazioaren gezurrezko diagnosian oinarritua. Iñaki Mendiguren

Aberrazioa da gazte hauei zigor bera jartzea jabego materialen kontra egindako delitu batengatik, edo pertsonen kontra egin daitekeen delitu batengatik. Berria - Euskal Herria

Kromosometan **aberrazioak** gertatzen direla ikusi dute. Berria - Gaiak

Legalitatearen normaltasunetik **aberrazio** hutsa besterik ez dena, subiranotasunaren ikuspegitik norbere ahalmenaren adierazpen da. Joseba Zulaika

Giza psikearen egitura eta funtzionamenduak esplikatzen du **aberrazio** tragiko hori, Bossueten hipotesi fedegabeaz baliatu beharrik gabe, Apetaldi suizida hau, harrokeriazko bekatuaren ordaina, **aberrazio** espirituala da, arima etengabe horretaraxe emana delarik giza nortasunaren funtsa den oreka ezegonkorrean. Iñaki Mendiguren

Hitlerren **aberrazio** genozidak izan arte inongo kutsurik gabeko hitza zen arraza, eta edozein ideologiatako jendeak lasai-lasai aipatzen zuen "euskal arraza", euskal herria esateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Talentua ukatzen ez badiote ere, aditu batzuen iritziz bere arkitektura ez da batere argia, itzal, inperfekzio eta **aberrazioz** betea baizik, modernitatearen diskurtsotik erabat aldendua. Patxi Iturritegi

Aldakortasuna egonkor bihurtzea, behin behinekoa beti errepikatzea, obrarik osatu beharrean borradoreak pilatzea, oraina bizi ordez geroenerako uztea **aberrazioa** da. Joseba Sarrionandia

Horrela izendatu dituzte sexu berekoen edo transexualen arteko sexu harremanak; zenbaitentzat, **"aberrazioak"** dira, helburua ez baita ugaltzea. Luis Elberdin

Bi eleberriek langai dituzte monolitiko agertu arren, halako homogeneo ez diren bi gizarte **aberrazio**: nazismoa eta fundamentalismoa. Berria - Kultura

2 optikan, sistema optiko baten akatsa, objektu errealaren irudia desitxuratzen duena.

Irudiaren erdigunea zehazki fokaturik badago, irudiaren ertzak lausoturik agertzen dira; **aberrazio** esferikoa esaten zaio teknikoki akats horri. Irene Aldasoro

Lentearen ardatzetik hurbileko argi-izpiek objektuaren ertzetakoek baino urrunago lortzen dute fokua, eta horregatik gertatzen da **aberrazio** esferikoa. Irene Aldasoro

Foku-zehaztasunik ezaren beste kausa bat hau da: fokatzegaitasun desberdina duela objektiboak kolore bakoitzerako; **aberrazio** kromatikoa esaten zaio efektu horri. Irene Aldasoro

Argi moteletan, koloreak ez dira ondo ikusten, eta **aberrazio** kromatikoa ez da hainbesteko arazoa. Irene Aldasoro

3 ***aberrazio esferiko***

Nabarmenena, honatx: irudiaren erdigunea zehazki fokaturik badago, irudiaren ertzak lausoturik agertzen dira; **aberrazio esferikoa** esaten zaio teknikoki akats horri. Irene Aldasoro

4 ***aberrazio kromatiko***

Foku-zehaztasunik ezaren beste kausa bat hau da: fokatzegaitasun desberdina duela objektiboak kolore bakoitzerako; **aberrazio kromatikoa** esaten zaio efektu horri. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aberrazio bat** (3); **aberrazio esferikoa** (4); **aberrazio kromatikoa** (4)

---

aberri *(ETCn **10.101** agerraldi)* **1** *iz* sorterria, eskuarki naziotzat hartzen denean. ik **nazio**; **herri**.

Aberri bateko, lanbide bateko, zibilizazio bateko, erlijio bateko gizon bilakatzen da, beraz, gizona. Josu Zabaleta

Herritarrak, **aberria** arriskuan da! Elena Touyarou

Izan nahi genukeena garelako itxura eginez bizitzea egokitu zaigu beti: hizkuntzarekin, **aberriarekin**, munduarekin. Joxerra Garzia

Nork bere herrira joko du, nork bere **aberrira** ihes egingo, gerra suntsitzailetik urrun. Elizen arteko biblia

Eta pentsatzen ari zen berak, toki guztietan judu izanik, atzerritar beraz, ba ote zuen **aberri** bat izateko eskubiderik. Felipe Juaristi

Aberria, erran nahi baita arbasoen lurra, guretzat lehenik Euskal Herria da. Piarres Xarriton

Ez dakigu ordea abertzale horren **aberria** zein zen. Piarres Xarriton

Komandantea bai, izan nintzan komandantea, baina Euzko Gudarostekoa, gudan, **aberria** etsai faxistengandik babesteko gudan. Juan Luis Zabala

Aberriaren alde eman zuten bizia. Jon Alonso

Aberriaren alde dena eman behar zela uste zuten EKIN eta ETAko gazteek ere. Joseba Zulaika

Alde guztietan, lapurreta, bortxakeria, hilketa, gure senide eta ongileekiko esker txarra, kalte egiteko eta ez errugabe bati laguntzeko egiten den zinegite faltsua, eta bere **aberriaren** aurkako konspirazioa, delitu nabarmenak dira. Juan Martin Elexpuru

Aberriaren pizkundeak ere gutako asko ez gaitu askorik gogoberotzen, nazionalisten eskuetatik badator. Joseba Zulaika

Amodio kanta bat ene **aberriarentzat**, / **aberri** txiki, argi handi. Joseba Sarrionandia

Aberria ... /... soldaduena da;... /... Jainkoa... /... apaizarena;... /.. ondasunak... /... aberatsenak. Joseba Zulaika

Peitu zuten herria, peitu zuten **aberria**, peitu zuten atzerria. Felipe Juaristi

Itsuak eta begibakarrak bazuten lurralde bat bererik, lur puska bat hiltzeko eta betiko atsedena eskuratzeko, **aberria** hori besterik ez baita, **aberria** hezurrak gordetzeko herria baita. bai baitzekien gizon-emakumeek **aberri** deitzen ziotela poz edo minaren ekarle zen lurraldeari, gizon-emakumeek **aberri** deitzen ziotela bakardadetik babesteko eraiki zuten etxeari, gizon-emakumeek hilkor zirela, hauts eta lohi zirela, ahazteko behar zuten euskarriari. Felipe Juaristi

Praga baitzitzaion **aberri** bezain erbeste, bera Pragakoa izanik ez baitzen Pragakoa, ez baitzen ez judu, ez txekiar eta ez aleman. Felipe Juaristi

Ez dute gure **Aberria** indarkeriarekin desegingo. Jokin Urain

Geure **Aberrian** geu izan gaitezela inongo erbestetarren aginpide gabe: geure familiekin, geure zaletasunekin, geure erlijioarekin, geure lanbideekin. Jokin Urain

Hark baitzuen deblauki erran "Euskal Herria da euskaldunen **aberria"**. Menane Oxandabaratz

Aberria da sorterria. Menane Oxandabaratz

Buru-belarri aritu zen sionismoaren helburu nagusiaren alde: **aberri** bat lortzea. Fernando Rey

1960an, eta baita 1970ean bertan ere, Obabako nekazariek antzinako mendeetako aire hori zuten, eta, zentzu hertsian, beste **aberri** batekoak ziruditen. Bernardo Atxaga

Ene **aberri** lehena -bakotxak bere ikusmoldea-, da lurra. Menane Oxandabaratz

Izugarri handia zen etxea; baso eta mendiek babesten zuten ordekatik; **aberri** bilakatu zitzaion etxe hura herrialde arrotzean. Xabier Olarra

Aberria sentimendu bat zuan niretzat. Xabier Olarra

Praga baitzitzaion **aberri** bezain erbeste, bera Pragakoa izanik ez baitzen Pragakoa, ez baitzen ez judu, ez txekiar eta ez aleman. Felipe Juaristi

1789ko iraultzaz geroz, alabaina, Frantziaren eremuetako ikastegi guztietan [...] irakatsi izan da beti, Estatua eta Nazioa eta Populua eta **Aberria**: patrie, peuple, nation, état, denak gauza bera direla, egundainotik eta sekulakotz Frantzian. Piarres Xarriton

Denak erne bai erne egon ziren, erbesteratuak beren **aberriaz**, beren etxe urrutikoaz mintzo direnean sentitzen dutenaren antzeko tristuraren zantzua nabari baitzuen ahotsean. Xabier Olarra

Aberritik hainbeste lagun erbesteratu zuena, erbestean hil zen. Elizen arteko biblia

Aberri baten eraikuntzak ez du horrenbeste odol merezi. Mikel Hernandez Abaitua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estatu indartsu bat, **aberri** berria egiteko, eskatuko du Unamuno-k Valentziako Ateneoan konferentzian 1902an. Joxe Azurmendi

Euzkadi geure **Aberri** agurgarria, galdu zenetik, hemen bilatu dute gehienek -ez denek esateagatik- beren ostatua. Jokin Urain

Eta gure haurtzaroan, **"Aberri** handia" La Grande Patrie, eta **"aberri** ttipia" la petite patrie, ez genuen besterik entzuten, plazetan, eskoletan ala elizetan, Iparralde guztian. Piarres Xarriton

Nire sorterriari diodan maitasunak bat egiten du **aberri** handiari diodan maitasunarekin, eta, sozialista naizen aldetik, baita amesten dudan **aberri** unibertsalarekin ere. Berria - Kultura

Konstituzioa oinarritzen da hautsi ezinezko espainiar nazioaren batasunean, hura baita espainiar guztien **aberri** komun eta zatiezina. Pello Salaburu

Kantika ozen hura hain maite zutenek, Res Publica aipatzean ere, Frantzia bera zuten gogoratzen, erran nahi baita [...] gure Ipar Euskal Herri xumea bere altzoan goxatzen eta kulunkatzen zuen Nazio puxant eta **Aberri** Handi egiazkoa. Piarres Xarriton

Gure **aberri** pobreak eta kultura kaskarrak balio oso erlatiboa du, hori egia da. Joxe Azurmendi

Azkenik, iraganetik datorren **aberri** politikoa [...] etorkizunera zabaltzen den hezur-haragizko **aberri** konkretu bihurtzen da. Markos Zapiain

Zeren **aberri** burujabea eta sozialista eraikitzea baitzen orain helburua. Bernardo Atxaga

Errexago da funtsean bihotza **aberri** irabazle batetik deslotzea. Piarres Aintziart

Bainan, nik erranen dut, gaurko egunean, ikusiz gauzak nola diren, ene **aberri** lehena ez da Eskual Herria. Menane Oxandabaratz

Zuengan berezko justiziaren printzipioaren aztarrenik txikienik ere baldin balego, besterik gabe, zuen ekipaje, dirua eta ondasunak bildu, zuen emazteak eta seme-alabak hartu, eta hanka egingo zenukete **aberri** mairurantz, nondik ordu txarrean etorri baitzineten. Jon Alonso

Nik idazten dudana baita **aberri** galdutik geratzen zaien gauza bakarra. Koro Navarro

Balizko **aberri** baten oroimina. Xabier Mendiguren Elizegi

Funtsean ez dago gaurgero Aita ahalguztidunik zer egin behar dugun esango digunik, zigortuko gaituenik oker egiten dugunean, babestuko gaituenik adore faltan gaudenean, **Aberri** behin-betikora eramango gaituenik. Joseba Zulaika

Ahotsean nostalgia kutsu bat nabari zuen: gazteek zerbaiten desira eta nostalgia sentitzen dute beti, susmopeko **aberri** ezaxola eta beldurgarri batena, mundua deritzon **aberri** horrena. Xabier Olarra

Piamontea gure **aberri** zinezkoa zen, geure burua ezagutzen genuenekoa; Turin inguruko mendiak, egun argietan ikusmenean, eta bizikletaz irispidean, gureak ziren, ordezkaezinak, eta haiek irakatsi ziguten nekea, eroapena eta nolabaiteko zuhurtzia. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta, non ere **aberri** sentimenik ez den, ez du hizkuntzak eramango hara. Josu Zabaleta

Orain azter dezagun Anaxagorasen homeomeria, grekoek hala deritzotena eta guri **aberri** hizkuntzaren txirotasunak geure mintzairan esaten uzten ez diguna. Xabier Amuriza

Txikia -ez agian Txikia poeta, baina bai Txikia borrokalaria- ondo bizirik dagoelako euskaldun askoren gogoan, eta horren erakusgarri da aipatu berri dudan hilobia, Estatu handietako **aberri** -gurasoen panteoien antzera ia inoiz lorerik falta izaten ez duena. Xabier Mendiguren Elizegi

Aberri libertatearen alde. Piarres Aintziart

Nik ez dut garai bateko federik, ez eliza kontuetan ez **aberri** kontuetan ere. Joxerra Garzia

Ni banoa hemendik, bizitzaren erdia eman dut hemen eta orain **aberri** -oporrak merezi ditut erotu baino lehen. Mikel Hernandez Abaitua

Agur, gure **aberri** egarriaren azken edantoki gazia. Jokin Urain

Eta nago, aste santuaren antzera **aberri** eguna ere ez ote den molde huts, ohitura zaharkitu, errutina bihurtu Kinka hartan, 1938ko **Aberri** Egunerako agiri bat atera zuen Euzkadi Buru Batzarrak. Joxerra Garzia

Arrakasta handia izan zuen lehen **Aberri** Egunak. Joseba Zulaika

Suharki, **aberri-zale** agertzen direnen diskurtsoen muina sinesgaitzago zait, manipulazio hutsa irizteraino batzuetan. ik abertzale. Itxaro Borda

4 irud/hed

Erbestearen garratza uzten du aho sabaian, negua baitu laranjak **aberri** eta amets. Joxerra Garzia

Egun batetik bestera, batere aztarnarik utzi gabe desagertzen zen zuela ordu gutxira arte **aberri** zuen hiritik. Harkaitz Cano

Lagunak nituen **aberri** bakar, lagunak. Karlos Linazasoro

Euskara **aberri** bat dela diote poeta txurigorriberdeek, Hugoren zera hura bereganatuz, eta **aberri** horren erdian... zer?, hitzak, hotsak, esanak? Iñaki Segurola

Frantses errepublikak, "giza eskubideen **aberri"** horrek historian zehar ukan duen jokabide ilunaz lurralde gutietsieri buruz. Herria

Sugandilen **aberria** eguzkia da. -Nire **aberriaren** izena Haydn da. Felipe Juaristi

Orain zeure argi-izpiak ezkutatu dizkiguzu eta, zeruko **aberri** zoragarrira alde eginez, gure konpainia kaskarra aingeru eta santuen etengabeko konpainiaz ordezkatu duzu. Askoren artean

Orain zeure argi-izpiak ezkutatu dizkiguzu eta, zeruko **aberri** zoragarrira alde eginez, gure konpainia kaskarra aingeru eta santuen etengabeko konpainiaz ordezkatu duzu. Askoren artean

Gure bihotza zeruko **aberriaren** irrikaz sututa balego, erraz eramango genuke kanpoko hotzaDenbora gutxian, askok eta askok utzi zituzten munduko ardura garratzak eta, Frantziskoren gidaritzapean, benetako **aberrira**, on mugagabera, itzuli ziren. Askoren artean

5 ***aberri ama*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***12*** *agerraldi)*

Ildo horretatik, Pekingo ordezkariak azpimarratu zuen " **Aberri Amatik** banatzeko ekintza terroristak egiten dituen aktibista" dela Dalai Lama. ETC-prentsa

Aberri ama aipatzen ez dizutenean! Horixe gauza ridikulua! Zer **aberri ama**, gero! Ama torturatzailea, zikiratzailea, hiltzailea, ebanjelizatzailea. ETC-prentsa

Lurralde hispanoamerikarrak " **aberri-amarengandik** " banatu ziren, askotan Britainiar Inperioaren laguntzarekin, Espainiaren monopolioaren gainetik aritu nahi baitzuen merkataritzan Amerikarekin. ETC-entziklopedia

Iraultzaileek, erregimen aldaketa sinbolizatzeko erabili zuten, baina, batez ere, " **aberri ama** "ren sinbolismoa azpimarratzen zuelako, errepublikaren seme-alabak babesten dituen ama elikatzailea. ETC-entziklopedia

6 ***Aberri Egun***

Dakidana da **aberri eguna** eta abertzaleen batasuna eta mariasantisima horien guztien gainetik aberria bera dagoela: jendea, alegia, herri honetan bizi nahi dugun guztiak, bizi nahi eta ezin dutenak barne. Joxerra Garzia

Baina **Aberri egunak** eta agiri handiak gorabehera presoek barruan jarraitu zuten. Jokin Urain

Fede honi loturik zeuden 1932ko **Aberri Eguna** eratu zuten abertzaleak. Joseba Zulaika

Euskal Herri independentearen aldeko aldarria egingo du **Aberri Egunean**, Gernikan. Berria - Euskal Herria

-Aurreko batean **Aberri Egunari** buruz jardun genian - abiatu zaizu inspektorea -; gaurkoan Lege Sindikal berria hartuko diagu hizpide. Rafa Egiguren

Biharamunean egin zioten hileta-elizkizuna, Pazko igande eta **Aberri Egunean**. Xabier Mendiguren Elizegi

Behin, militante lan hori Galarretan antolatu zen **Aberri Egunean**, Txokoren gain geratu zen. Itxaro Borda

Aberri Egunaz, baten bat ibili zen han lore gorriak paratzen. Koldo Izagirre

Emakume Abertzale Batzan sartu zen Polixene oso gazterik, PNVren baitan emakumeek sortu zuten talde berezi hartan, eta irratiko elkarrizketan kontatu duenez, bere lehen mitina Urduñan eman zuen, **Aberri Egun** batez. Pako Aristi

Egin izan zela ere Itsasun, 1963ko Pazkoz, delako **Aberri Eguna**. Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

aberri bakarra (6); **aberri bat** (8); **aberri baten** (5); **aberri batzarra** (8); **aberri batzarrak** (17); **aberri batzarrean** (8); **aberri batzarreko** (11); **aberri berria** (24); **aberri egun** (46); **aberri egun bateratu** (4); **aberri egun bateratua** (16); **aberri egun bateraturako** (4); **aberri eguna** (159); **aberri eguna eta** (4); **aberri eguna ospatu** (4); **aberri eguna ospatzeko** (5); **aberri eguna zela** (4); **aberri egunak** (11); **aberri egunaren** (38); **aberri egunaren harira** (4); **aberri egunaren karietara** (9); **aberri egunari** (11); **aberri egunari begira** (6); **aberri egunean** (85); **aberri egunean nazio** (6); **aberri eguneko** (22); **aberri eguneko ekitaldian** (6); **aberri egunera** (9); **aberri egunera begira** (5); **aberri egunerako** (33); **aberri egunetik** (5); **aberri eta** (6); **aberri horren** (4); **aberria da** (6); **aberria eta** (18); **aberria maite** (5); **aberriak eta** (4); **aberriaren alde** (54); **aberriaren alde eta** (4); **aberriaren aldeko** (18); **aberriaren eta** (7); **aberriaren mugak** (6); **abk aberri** (5); **aurtengo aberri** (27); **aurtengo aberri eguna** (14); **aurtengo aberri egunean** (9); **batasunak aberri** (6); **benetakoa dun aberri** (4); **bere aberria** (5); **bere aberriaren** (6); **beste aberri** (5); **da aberri** (12); **da aberri eguna** (8); **da aberria** (4); **den aberri** (8); **du aberri** (17); **du aberri eguna** (8); **du batasunak aberri** (4); **dun aberri** (9); **dun aberri berria** (9); **dute aberri** (4); **eajk aberri** (5); **eajko aberri** (8); **eajko aberri batzarrak** (4); **eajren aberri** (7); **eajren aberri batzarrak** (4); **eak aberri** (4); **eta aberri** (22); **eta aberria** (8); **eta aberriak** (4); **eta aberriaren** (19); **eta aberriaren alde** (6); **euskaldunen aberria** (4); **gure aberri** (9); **gure aberria** (19); **gure aberriak** (4); **gure aberriaren** (10); **iazko aberri** (5); **iazko aberri egunean** (4); **igandeko aberri** (4); **lehen aberri** (7); **nire aberri** (4); **nire aberri bakarra** (4); **nire aberria** (12); **ohiko aberri** (4); **ospatu zuen aberri** (4); **ospatuko du aberri** (6); **udalbiltzak aberri** (6); **zuen aberri** (6); **zuen aberri eguna** (4); **zure aberria** (4); **zuten aberri** (4)

---

aberriano *iz* abertzaleen mugimendu erradikaleneko kidea.

Irlandar nazionalismoaren eredua ere eraginkorra zen: 1916ko Dublingo Matxinada Pazkokoa eredu bihurtu zen **aberrianoentzat**. Joseba Zulaika

Irlandar nazionalismoaren eredua ere eraginkorra zen: 1916ko Dublingo Matxinada Pazkokoa eredu bihurtu zen **aberrianoentzat**. Joseba Zulaika

---

aberrigabe *izond* aberririk ez duena.

Filma benetako gertakizun batean oinarrituta dago: Parisko Charles de Gaulle aireportuan urteak daramatzan **aberrigabe** baten esperientzian oinarrituta, hain zuzen. Berria - Kultura

Leonek galdua zuen nazionalitate italiarra, **aberrigabe** bihurtua zen. Fernando Rey

Omenaldia **aberrigabeei**. Berria - Kultura

Segur aski, handik gutxira, gu ere **aberrigabeen** multzo handian egonen ginen, herri batetik bestera joatera behartuak, polizia-etxe batetik bestera, ez lan eta ez erro, familiarik gabe, etxe gabe. Fernando Rey

Haarlem-en utzi zituzten, ihesa Frantziatik zehar saiatzeko aholkatuz, Holandan juduen eta judu usaineko **aberrigabeen** aurkako segadak handik aurrera gogortu egingo zirela jakinik. Felipe Juaristi

Han goian ez zenuke, **aberrigabe** anonimo eta pobre horrek, zertaz arduratu beharrik izango. Joseba Sarrionandia

Pasaporte berezia zen, **aberrigabe** inportante batzuei ematen zietena. Fernando Rey

---

aberrigintza *iz* aberria egitea, aberria eraikitzea.

Areago, benetako gudak gogoan, prentsa da "La Perfida Albión sucumbe ante la furia española" erako nardagarrikeriekin **aberrigintzan** dabilena. Iñigo Aranbarri

Hezkuntzan "pedagogia berritzailea sartu zuen", **aberrigintzan** eta erlijioan egindako lana nabarmendu du egileak. Berria - Kultura

Guk bizi egin behar dugu, guk lanean jarraitu behar dugu hemendik ateratakoan ere, **aberrigintzan**. Koldo Izagirre

Ikusi egin beharko emaitzak, Patri, baina niretzako nago, **aberrigintzan** oro har bezala, ez dagoela beste biderik, etorkizun erakargarri baten aldarrikapena egitea baino. Hasier Etxeberria

Aberrigintza jatorrean eta folklore txorrotxean hainbeste saiatu beharrean, zergatik ez begiratu, konparazio batera, euskararen berezitasuntzat hartuak izan diren ergatiboari edo deklinabide mugagabeari, izatearekin edo izanarekin zer ikusi gutxi dutela esan bailiteke, eta gehiago agian beste era bateko zerekin... Iñaki Segurola

---

aberrikide *iz* aberri bereko persona.

Miloszen hilobiratzeak iskanbila sortu du Polonian, nazionalistek eta katoliko muturrekoek ez baitzuten nahi poetaren gorpua poloniar **aberrikideekin** lurperatzea, traidoretzat baitzuten bi sektoreek. Berria - Kultura

PSCk bere horretan segiko du eta PP jaitsi egingo da (euren **aberrikideen** astakeriengatik, bestela oso boto leiala baita). Berria - Euskal Herria

---

aberrimin *iz* aberriarekiko mina.

Erromesak bagina, zoriontsu izateko **aberriminez**, erromesaldiaren zoritxarrari amaiera eman eta aberrira itzultzeko irrikatan egongo ginateke. Imanol Unzurrunzaga

---

aberriratu, aberrira(tu), aberriratzen da/du *ad* aberrira joan; aberrira eraman.

Ezertxo ere ez zen falta: musika, **aberriratzen** ziren mutilentzat martxa alaitsuak, baita ohorezko danborradak ere eroritakoen omenez. Txema Ramirez de la Piscina

Hemezortzi urterekin, adin nagusitasuna lortu zuenean, 1932an, amarekin Frantziara **aberriratu** zuten. Berria - Kultura

Ameriketako Estatu Batuek (AEB) Guantanamoko base militarrean dituzten Erresuma Batuko 9 atxilotuek laster **aberriratuko** dituzten itxaropena dute. Berria - Mundua

Haientzat garrantzitsua baita betidanik, bai atzerrian inbertitzeko, eta baita mozkinak **aberriratzeko** ere, askatasun hori. Brasilera **aberriratutako** gizona igeltseroa zen. Iñaki Heras

Ontziz aldatzean, kutxa bat uretara erori: hara zer gertatu zitzaion Ruche jaunaren lagunetariko bati, Algeriatik **aberriratu** bati, 1962an, Marseillako portuan. Jon Muñoz

---

aberriratze *iz* aberrira joatea; aberrira eramatea.

Poliziak jaioterria bidali zuen ustez Espainiako Atzerritarren Legea urratzeagatik, epailearen erabaki batek **aberriratzea** bertan behera utzi zuen arren. Berria - Euskal Herria

Kanpoko aurrezkiaren eta barneko aurrezkiaren arteko ordezkatze-efektuek luzarorako uzten dute ordainketa-balantza ahuldurik, eta itxura bereziki kontraesanezkoa ematen diote koiunturazko zikloari, atzerritar kapitalen barneratze- eta kanporatze-aldiak ezaugarri dituena, zeinak aldi berean baitira nazio-kapitalen **aberriratze**-aldiak eta ihesaldiak. Koro Navarro

---

aberritxo *iz adkor* aberri xumea.

Ikusgarria da, guztion aberri txiki karnalok mespretxatu eta gero, nolako aberri espiritual paregabeak eraikitzen eta defendatzen dituzten "ez-nazionalista" "absolutista" "unibertsal" horiek -ideiak, doktrinak, periodo historikoak, debozioko testu sakratuak...-, beren **aberritxo** zerutarrak, beren etxetxo ondoan. Joxe Azurmendi

---

aberrizale *iz* aberriaren zalea dena. ik **abertzale**.

Santua eta bakartia, lurreko destainaz eta zeruari begi emanda estasian, gizateriaren ideal gorena bihurtu ziren jendearen iritzian, **aberrizalearen** eta heroiaren ideal zaharra baztertuz; hauek, beren buruak ahaztuta, prest daude beren herriaren mesedetan bizitzeko eta hiltzeko. Iñaki Mendiguren

Don Estanislao aldi hartako elizgizon herrizale haien eredukoa zen: foruen galera haragian sufritu zuen **aberrizale** haietakoa, foruzale amorratua. Berria - Kultura

---

aberrizaletasun *iz* aberrizalea denaren nolakotasuna.

Mihigaiztoek esaten dute Andrew Millerren erreklutatzeko manerak ez zirela oso katolikoak -ezta Ingalaterrako Elizan ohizko diren moduetarako oso gomendagarriak ere, nahi bada-, eta jukutriatik gehiago zutela benetako konbentzitzetik eta norberaren **aberrizaletasuna** piztetik baino. J.M. Olaizola "Txiliku"

Dirudienez, Miller, hiztun ona izanik ere, hitz gartsu eta **aberrizaletasunez** beteekin gazteen bihotzak inarrosten baino abilagoa zen jende haren muturrak berotzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

abersitate *iz* zoritxarra, ezbeharra.

Baina egia da, halaber, ezen, **abersitatearen** aitzinean, aitzina egiteko disposizione hori ere badudala. Joan Mari Irigoien

Gizonaren egitekorik handiena patuari eta **abersitateari** buru egitea da, Graziana, mundua aitzina egiten dutenena denez gero, ezbeharren eta ondikoen gainetik. Joan Mari Irigoien

Libertateak bere zigiluz markatu duen gizon hautatu horietarik duk, **abersitateari** buru egiten diona eta beti ere aitzina egiten duena...! Joan Mari Irigoien

---

abertimendu *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* abisua.

Xapeldunak du orduan azkena baina horra hor **abertimendua**, Patrik, beste aldiko. ETC-prentsa

AIEA atoma indarraren agentzia herriartekoak, hainbeste abisu, **abertimendu** eta mehatxuren ondotik, beharko ote du azkenean herri hori gaztigatu? Oro beldurrez daude alabainan norako den ondarrean Irania bere nuklear jakintzaren hobetzen eta indartzen ari delarik, uranium irriskutsuaren aberasten ari baita desafioz bezala. ETC-prentsa

Abertimendu bat da, erakusketan aurkituko dudan produkzioa figurazio klasikotik guztiz aldentzen dela iragartzen duena. ETC-prentsa

Administratzaileari dagokio: a) Etxearen araubide ona, eta horren instalazioak eta zerbitzuak zaintzea; ondore horietarako, titularrei egokiak diren **abertimenduak** eta ohartarazpenak egin beharko dizkie. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

abertitu, aberti(tu), abertitzen du *ad* ohartarazi, jakinarazi.

Gauza bat esan behar dizut, atzo ahaztu zitzaidan **abertitzea**: mutil hori ez da Krapotkinen semea, P. konde frantsesaren semea da. Matías Múgica

Harrotzen dituzte bazterrak, lehenik autoetan jinez eta bixtan da **abertitzen** dutela hor direla beren tuta eta arrabotsekin. Herria

Honek gero auzoak banaka abisatzen zituen, gaua apaltzean alargunaren edo amaren sukaldera heltzeko erranez: "haur gaixoa, gaur "proëlla" bada zurean! "Familiak orduan penn-brao aldeko mahaian mihise zuria hedatzen zuen, apezaren **abertitzera** norbait igorriz. Itxaro Borda

-Mentsa haiz ala? -ahoskatu zuen Txokok-, **abertitu** gaituk. Itxaro Borda

Aitortu behar da, idazleak kritikoen beharretan direla, kritikoak zubiak baitira idazlearen eta irakurle **abertituaren** artean. Ana Urkiza

Abertituak dira hauk ere nola ari behar duten, gorago erranak izan direnen ondotik. Herria

Nik ez nuen norengan fidatu, ez ikasia eta ez **abertitua** nintzen, eskarmenturik gabea eta ezjakina: halaxe jaurti nintzen nire patuaren amildegira. Eduardo Matauko

---

abertzale *(ETCn **82.889** agerraldi; orobat **aberzale** g.er.) izond/iz* aberria maite duena, aberriaren alde saiatzen edo borrokatzen dena. ik **nazionalista**; **herrizale**.

Horrek erakustera ematen du **abertzale** batzuentzat euskal departamenduaren aldarrikapena lehen urrats bat dela. Berria - Euskal Herria

Nafar **abertzale**, aurrerakoi eta euskaltzaleen ahotsa defendatzeaz gain, nafarren interesak defenditu zituen "ahots bakarra" berea izan zela azpimarratu zuen Barkosek. Berria - Euskal Herria

Arregiren hitzetan, «hauteskundeetan bi lubakitan banatzen da euskal gizartea: **abertzale** direnen eta ez direnen artean Berria - Euskal Herria

Leitzan berriz, Tolatxeneko Fermin Azpirozi ikasia, gerrondoan Agur esaten zuenari, "límpiate el culo con Amayur" nola erantzuten zioten euskal **abertzaleei** iseka. Patziku Perurena

Baina bada hor aitoren semetxo bat, begi-okerra; badakizu zein **abertzalerengatik** ari naizen, ez? Irene Aldasoro

Bazekiten ni babestuta nagoela, kontuan hartzen badugu Albia ondoan jaioa naizela, eta Abandoko sendi **abertzale** batetik natorrela. Javi Cillero

Baina gazteak, ikurrinean ez ezik, txapelari eusteko moduan ere gura du igar dakion **abertzalea** dena. Edorta Jimenez

Abertzaleak, sozialistak eta errepublikanoak elkartu ziren.Tradizionalistak ez ziren agertu, izan ere Don Juan Manuel Garaikoa gabe ez ziren nor. Joseba Sarrionandia

Jonek bazuen bere ezjakintasun geografikoaren berri, eta beti pentsatu izan zuen **abertzale** batek bere herria ezagutu behar duela. Unai Iturriaga

Badaki klasean iritzi guzietako jendea baduela eta batzuek euskararen ikasteaz aparte ez dutela deus jakin nahi, kontzientzia politiko **abertzalerik** ez dutela. Eneko Bidegain

-Azken batean -bukatu zuen On Camillok-, arrazoia hik daukak, erretorika **abertzaleari** dagokion guztia erdeinatzen duan horrek, hire aberria mundua dela dioen leloa daukaan horrek, hik bai, eta ez besteek. Koldo Biguri

Honelakoak idatzi zituzten fronte **abertzale** bat beharrezko zela eta: "xxxx". Joseba Zulaika

-Abertzale on baten obligazioa da aberkideei egia esatea, eta nik egia esan dizuet. Joan Mari Irigoien

Gaztetan **abertzalea** izan baldin bazen ere, gerra Francorekin egindakoa zen A., kristautasunaren izenean. Koldo Izagirre

Jende bulartsua, kemen handikoa eta **abertzalea** denik ezin ukatu. Edorta Jimenez

Nik neuk ere, giro hartan, **abertzaletzat** nuen neure burua. Joan Mari Irigoien

Abertzale ez diren politikoek euskara beti arazo gisa ikusi izan dute, zoritxarrez, eta dudan inpresioa da euskara historiaren zokoan desagertuko balitz, hiletetako elizkizunetan lehenbiziko lerroan uzkurtuta eta itxurak egin ondoren, lasai ederra hartuko luketela. Pello Salaburu

Ez dakigu ordea **abertzale** horren aberria zein zen. Piarres Xarriton

Granadakoa zen arren, beste inor baino **abertzaleagoa** eta sozialistagoa zen. Iban Zaldua

-Borroka armatua hautatzen duena da zinezko **abertzalea**! Aberria maite duen bakarra... Itxaro Borda

Arrazoi politikoak dira kasu horretan, euskaltzaletasuna abertzaletasunarekin berdintzen baitute bere burua **abertzaletzat** ez duten agintari politikoek. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Komunista edo **abertzale**, denak ziren berarentzat gorri, agintarien kontra ari ziren momentutik. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiru jira egin zizkioten hiriaren erdiguneari, beste **abertzaleek** ikus zezaten. Juan Kruz Igerabide

-Errudun zara, beraz, **abertzale** ez izan arren. Karlos Linazasoro

Dueson milaka geunden, **abertzaleak**, anarkistak, komunistak, errepublikarrak... eta denok ere txarto, familia edo jarabí apur bat genuenok ere ezin genuen kanpoko janaririk mangatu, ez zuten onartzen. Koldo Izagirre

Politikarako tresna soila zen **abertzale** askorendako, Euskal Herriaren beregaintasuna aldarrikatzeko ikur hutsa. Koldo Zuazo

Balentriok, batez ere XIX. mendeko mugimendu erromantikoen eraginez, gero eta kutsu **abertzaleagoa** hartuz joan ziren. Martin Anso

Abertzaleek, etxeetan sartu eta jana eta behar duten guztia eskatzen dute. Gotzon Garate

Kirikiño, garaiko **abertzale** gehienak bezala, kritikatzen zituen karlistak bezain integrista zen alor askotan. Koldo Izagirre

Baina ez zeukaten ezer **abertzaletik**. Agurtzane Juanena

Ni ez naiz **abertzalea**. Karlos Linazasoro

Une hartan, nire inguruan ezkertiarra eta antiburgesa izan behar zenuen eta **abertzale** izanez gero, ETAren miresle. Ana Urkiza

Eta oro har, paperean bederen, **abertzaleen** eskuetan egon izan diren gainerako administrazioak ere, beste alderdiek ez baitute honetan gehiegi egin, egia aitortzen baldin badugu. Pello Salaburu

Abertzaleen, idealisten eta inozo guztien gorpuen kiratsa helduko ez zen bazter ederren batera. Alberto Ladron Arana

Gainera, Txomin behin baino gehiagotan ikusi du besta edo manifestaldi **abertzale** batean edo bertzean. Eneko Bidegain

Erdal prentsarentzat (**abertzaleen** erdal prentsak barne), gure sistema ez da baliagarria. Iñigo Aranbarri

Espainiako eta Frantziako presondegi ankerretan beren urterik onenak galdu dituzten preso **abertzaleen** gorazarrez. Txillardegi

- Ba hik hamalau xorta edan ondoan ahanzten baituk **abertzale** haizela! Itxaro Borda

Etxetik ihes egitera behartuak izan diren **abertzaleen** artean hil direnen zerrenda luzeko azkena, beste bat gehiago, izan da gure Turron. Jokin Urain

Baina ni ez naiz traumatologo **abertzale** bat ikustera joan, ni neu tratatu ninduen traumatologoa ikustera joan naiz ni, nola ez nau gogoratuko ba... Agurtzane Juanena

Autoreari gaitzespen ugari etorriko zaizkio **abertzaleak** deritzeten horien aldetik ere. Jose Morales

Izango zen komunista baten oka, edo **abertzaleren** batena. Jon Maia

Gure proposamen xelebrea (jatetxe **abertzaleena**) gorpuztuko da. Edorta Agirre

Jadanik **abertzale** izenaz beztitzen zen Frantxis trufa eta trufa ari zitzaion. Itxaro Borda

2 (izenondoekin)

Lezo Urreztietak - bai, Agirreri armak erosten zizkion santurtziar **abertzale** suharrak -, bazuen Luis Aranarekin batera erdi bidean utzi zuen asmo eder bat Euzkadi gerran galdu eta erbestean herri minez zebiltzan euskaldun haientzat guztientzat. Iñigo Aranbarri

Abertzale negarti haiekin beste kontu bat izan zitekeen, ziur. Edorta Jimenez

Amaginarrebaren esanetan, **abertzale** zintzoa omen zen bere garairako, eta hark bezala justu-justu idazten eta irakurtzen zekien jendearekin konparatuz gero, jakituna ere bazen, eta diru asko emandakoa euskal aldizkariak eta, oro har, kulturari loturiko ekintzak bultzatzeko. Ramon Saizarbitoria

Soldadu ibilia da gerran, eta gudari kuraiatsuaren eta **abertzale** berdin ezinaren domina erantsi berri dio ordurako ondo irabazia zuen poeta sonari. Anjel Lertxundi

Bestela, **abertzale** jebo horiengana edo karlista txapelgorriengana inguratuko dituk eta! Inazio Mujika Iraola

-Mutilaren neskalaguna **abertzale** arriskutsua omen duk -segitu zuen-. Aingeru Epaltza

Eta arrazoirik ez balu ere, ez du behintzat bere burua herritar zintzo edo **abertzale** jatorraren eredutzat saltzen. Joxerra Garzia

Edonola ere, bitxia da "españolista" gisa iraindua izaniko Bikilak bere autobiografia euskaraz idaztea, bere burua **abertzale** eredugarritzat duen makina batek erdara darabilen bitartean1. Markos Zapiain

Horrela asmatu dira Don Pelaio berkonkistaria, Errege Katoliko arrazista batzuk Espainiaren bategile santuak, Mostolesko alkate bat **abertzale** heroikoa (ez terrorista?) eta Independentzia Gerra zuntzun bat Frantzia aliatuaren aurka, eta tonaka eta tonaka zientzia espainola. Joxe Azurmendi

Lehen zatia amaitzeko, antzerki emanaldi amateurrak antolatzen zituen neska gazte batek poema **abertzale** hunkigarri bat errezitatu zuen. Irene Aldasoro

Hala eta guztiz ere, Bilbon, Salamancan eta Madrilen kontsultatu ahal izan ditudan zenbait dokumenturi esker, ia ziurtasun osoz esan dezaket armen hartzaileak talde **abertzale** erradikal bateko partaideak zirela, EAJren zuzendaritzarekin ados ez zeudenak, Irlandako ereduak iluraturiko Partiduko gazteriakoak, apika. Iban Zaldua

Ikastolan, berriz, hasiera hartan kontzientzia **abertzale** garbiko jendearen seme-alabak zebiltzan, gehienbat. Xabier Mendiguren Elizegi

ETA politiko-militarrak armak utziak zituen, eta ezkerreko aukera **abertzale** demokratiko bat bultzatzera deliberatua zen; Euskadiko Ezkerra sorturik, sakabanatuta zebiltzan iraultzaile asko bereganatu zituzten. Juan Kruz Igerabide

Eta amak ez zuen etsitzen, erreibindikatu egiten zuen pailazoaren emazte estatusa eta **abertzale** iluminatuaren paperean jartzen zen: sakrifiziora ez baina garaipenera joaten ginen gu. Josu Zabaleta

Ama, Lady Wilde, olerkaria eta irlandar **abertzale** sutsua. Antton Olano

-Orduan betiko kontua... **abertzale** zahar horiek edozein lekutan mamuak ikusten ditiate. Jon Maia

3 (adizlagun gisa)

Nazkagarri samarra zen ustiaketa hura ikustea, eta Martinek, **abertzale** sentituz, frantsesen zikoizkeria eta doilorkeria aipatu zituen. Koro Navarro

Euskal jendea - **abertzale** azaltzen dena, batez ere- estereotipo mendregarri baten barruan josita uzteko asmoz berpiztu da azkenaldi honetan vizcaíno delakoa, figura hori bere horretan hartuz, edo lehen figura horri bigarren bat gehituz, politikoki susmagarria. Bernardo Atxaga

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Abertzale esparrua ez da gai izan komunikabide sare indartsua sortzeko, nahiz eta boterean egon 20 urtetik gora» Berria - Euskal Herria

Eta oraingo ezer aurpegiratu ezin diotenez, "**abertzale** itxurak egiteagatik" salatzen dute. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez dago esan beharrik, bada, kezkatuta gaudela, ETAren indarkeriaz baliatuta **abertzale** kutsua duen ororen aurkako erasoa bortitza baita aspaldion, gupidagabea esango nuke, eta areago erantsi, izaera demokratiko gutxikoa. Migel Angel Mintegi

5 ***alderdi abertzale***

EAJko ordezkariak, legearen ondorioak **alderdi abertzaleen** gainean ezartzen direla salatu zuen bere jardunean. Berria - Euskal Herria

Alderdi abertzaleek hartu dute, beti, bandera haizatzeko ekimena, baina UPNk agintea hartu zuenean, eskegitzeko debekua ezarri zuen. Berria - Euskal Herria

Baina **alderdi abertzaleek** gaiaren inguruan izan zuten liskarraren berri baino ez zuten eman, eta oso labur gainera: Ramon Saizarbitoria

Gauza bera egiten dute euskalduntasuna esentzia gisa ulertzen duten guztiek ere, **alderdi abertzaleetako** kide ugari tartean. Bernardo Atxaga

Interes desberdinak aurrez aurre daudenen artean, **alderdi abertzaleen** eta espainolisten artean kasu, antagonismoak garbiak dira eta ez dago traiziorik. Joseba Zulaika

Iparraldeko edo Hegoaldeko gisa, bereiz plantatzen ziren **alderdi abertzaleek** bake moduko zerbait sinatu zuten TKAren mehatxu bakunaren aitzinean "Etxe bat, errefuxiatu bat" kanpaina komunean eramanez. Itxaro Borda

Nazionalismoaren eta **alderdi abertzaleen** kontrako erasoa ez bide zitzaien nahi bezala ateratzen ari zentralistei eta komunikabideetako beren morroiei; alderantziz, bazirudien eragina kontrakoa izan zitekeela, hau da, ahuldu beharrean abertzaletasuna indartzea. Migel Angel Mintegi

Distantzia eta soraiotasun handiz bizi nituen Egunkaria-ren gorabeherak, eta baita inguruko egoera politikoa ere: ETAren atentatuak, presoen sakabanaketa, torturak, etakide batzuen heriotza ilunak, **alderdi abertzaleen** arteko ika-mika eta ezinikusiak, noizean behin hauteskundeak... Juan Luis Zabala

6 ***ezker abertzale***

Aldaketa horietan, **ezker abertzaleak** kaleratutako Konponbide Demokratikorako Alternatibak euskal herritarren artean izandako harrera arrakastatsuak zeresan handia izan du. Berria - Euskal Herria

Batetik, **ezker abertzaleak** erakutsi duelako berriro ere muturreko baldintzetan gai dela espazio sozio-politikoari eta proiektu politikoari eusteko, eta ikusi delako legez kanporatzeak ez duela balio **ezker abertzalea** suntsitzeko. Berria - Euskal Herria

Ezker abertzalearen "krisialdia" aztertu dute ABko militanteek. Berria - Euskal Herria

Gobernuak saldu nahi izan du proiektu erraldoi horien kontra **ezker abertzalea** besterik ez dela mugitu, baina hori ez da egia. Edurne Elizondo

Ezker abertzalearen aldeko asanbladetan jakinekoak dira buru: Pako Aristi

Balirudike garai batean **ezker abertzaleak** eskura ikusten zuela agintea, ene bada. Markos Zapiain

Ideologikoki, lurraldetasuna **ezker abertzaleak** sortu duen hitz bat da. Ana Urkiza

Koloretsuak dira musika kontzertuen iragarkiak, garagardo eta ron markek antolatutako unibertsitate-jaienak, eta baita **ezker abertzalearenak** ere. Urtzi Urrutikoeetxea

Gaur egun Francoren tiraniaren aroan baino handiagoa da askatasuna, demokraziaren arauekin egiten dira gauzak, eta isunak ere handiagoak ezartzen dizkiete **ezker abertzalearen** joerak aldezten dituztenei. Jokin Urain

Ezker abertzaleko pertsona ezagun anitz izan omen zen bertan, baita hildakoen senitartekoak eta sostengua adieraztera heldutako gazteak ere. Iñigo Aranbarri

Ezker abertzalekoek osoago iraun zuten, ahal bezainbatean, haien erorketek betiere zati bati baino ez baitzioten eragiten, borroka armatuaren alde zeudelarik segurtasun-neurri zorrotzagoak erabiltzen zituzten eta. Juan Kruz Igerabide

Kritikatu ez ezik, iraindu egiten omen dut **ezker abertzalea**, eta "esku beltzaren" begiradapean jartzen. Hasier Etxeberria

Ezker abertzaleko alderdi-kide batek botako lukeen diskurtso berdina zintzurrean gora uhinka aurtikitzen ari zarela ematen du. Itxaro Borda

ETA, **ezker abertzalea**, nazionalismoa, lehendakaria, obispoa edota sozialista disidenteak berdindu, kriminalizatu eta egurtzea aski ez, eta euskara bera egurtzea erabaki dutela, alegia, gure arimaren bizkar-hezurra xehatu arteko erasoan. Joxerra Garzia

Besteak beste, honakoak esan zituzten: Euskal Herria Espainian integratzeko, **ezker abertzalea** suntsitzeko eta, beraz, gerrarako beste tresna bat baino ez da plan hori. Txema Ramirez de la Piscina

7 *indar abertzale*

Indar abertzaleek, orotara, gehiengo osoa osatzen dute Eusko Legebiltzarrean, 39 legebiltzarkide baituzte EAJ-EAk, EHAK-k eta Aralarrek. Berria - Harian

Nafarren erabakitzeko eskubidea defendatu dute **indar abertzaleek**. Berria - Euskal Herria

Georges Malbrunot eta Christian Chesnot kazetari frantsesak "hurrengo hiru egunotan" askatuko dituztela iragarri zuen Irakeko **Indar Abertzaleen** eledun Fadhel Al Baiik, Al Arabia telebistan. Berria - Mundua

Erraiten ahal da **indar abertzalea** porroskatua dela eta bere ahalak biziki mugatuak dituela. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abertzale bakarra** (8); **abertzale bakarra** (8); **abertzale bat** (37); **abertzale bat** (37); **abertzale batek** (14); **abertzale batek** (14); **abertzale baten** (6); **abertzale baten** (6); **abertzale batzuek** (12); **abertzale batzuek** (12); **abertzale batzuen** (8); **abertzale batzuen** (8); **abertzale batzuk** (9); **abertzale batzuk** (9); **abertzale bezala** (7); **abertzale bezala** (7); **abertzale ekintza** (6); **abertzale ekintza** (6); **abertzale eta** (104); **abertzale eta** (104); **abertzale eta ezkerreko** (7); **abertzale eta ezkerreko** (7); **abertzale eta ezkertiar** (8); **abertzale eta ezkertiar** (8); **abertzale eta ezkertiarra** (6); **abertzale eta ezkertiarra** (6); **abertzale eta ezkertiarren** (7); **abertzale eta ezkertiarren** (7); **abertzale ez** (39); **abertzale ez** (39); **abertzale ez diren** (13); **abertzale ez diren** (13); **abertzale ez direnen** (6); **abertzale ez direnen** (6); **abertzale gehienek** (9); **abertzale gehienek** (9); **abertzale gisa** (8); **abertzale gisa** (8); **abertzale guziak** (9); **abertzale guziak** (9); **abertzale guzien** (12); **abertzale guzien** (12); **abertzale guzieri** (7); **abertzale guzieri** (7); **abertzale guztiak** (9); **abertzale guztiak** (9); **abertzale guztiek** (13); **abertzale guztiek** (13); **abertzale guztien** (8); **abertzale guztien** (8); **abertzale izan** (7); **abertzale izan** (7); **abertzale legez** (12); **abertzale legez** (12); **abertzale mugimendua** (8); **abertzale mugimendua** (8); **abertzale osoak** (7); **abertzale osoak** (7); **abertzale sutsua** (7); **abertzale sutsua** (7); **alderdi abertzale** (52); **alderdi abertzale** (52); **alderdi abertzale guztiek** (9); **alderdi abertzale guztiek** (9); **beste abertzale** (7); **beste abertzale** (7); **bi abertzale** (11); **bi abertzale** (11); **da abertzale** (16); **da abertzale** (16); **du abertzale** (7); **du abertzale** (7); **emakume abertzale** (6); **emakume abertzale** (6); **ere abertzale** (6); **ere abertzale** (6); **eta abertzale** (81); **eta abertzale** (81); **eta abertzale ez** (11); **eta abertzale ez** (11); **eta ezker abertzale** (9); **eta ezker abertzale** (9); **euskal abertzale** (6); **euskal abertzale** (6); **eusko abertzale** (13); **eusko abertzale** (13); **ez abertzale** (6); **ez abertzale** (6); **ezker abertzale** (90); **ezker abertzale** (90); **ezker abertzale legez** (12); **ezker abertzale legez** (12); **ezker abertzale osoak** (6); **ezker abertzale osoak** (6); **ezkertiar eta abertzale** (11); **ezkertiar eta abertzale** (11); **hautagai abertzale** (13); **hautagai abertzale** (13); **hautetsi abertzale** (11); **hautetsi abertzale** (11); **indar abertzale** (13); **indar abertzale** (13); **mugimendu abertzale** (7); **mugimendu abertzale** (7); **nafar abertzale** (6); **nafar abertzale** (6); **politiko abertzale** (6); **politiko abertzale** (6); **talde abertzale** (8); **talde abertzale** (8); **zerrenda abertzale** (7); **zerrenda abertzale** (7)
>
> **abertzaleak argi** (6); **abertzaleak azken** (6); **abertzaleak bere** (14); **abertzaleak bergarako** (6); **abertzaleak beti** (7); **abertzaleak bi** (9); **abertzaleak bide** (7); **abertzaleak deituta** (8); **abertzaleak deitutako** (8); **abertzaleak dira** (8); **abertzaleak diren** (6); **abertzaleak egindako** (17); **abertzaleak eginiko** (6); **abertzaleak egiten** (6); **abertzaleak ere** (36); **abertzaleak espainiako** (8); **abertzaleak eta** (66); **abertzaleak ez** (54); **abertzaleak ez diren** (6); **abertzaleak ez du** (7); **abertzaleak ez duela** (8); **abertzaleak gara** (7); **abertzaleak gatazka** (17); **abertzaleak herri** (8); **abertzaleak ia** (8); **abertzaleak izan** (8); **abertzaleak kudeatutako** (12); **abertzaleak kudeatutako udalbiltzak** (7); **abertzaleak sa** (6); **abertzaleak salatu** (7); **abertzaleak talde** (6); **abertzaleak taldea** (27); **abertzaleak taldea desegiteko** (6); **abertzaleak taldeak** (85); **abertzaleak taldearen** (23); **abertzaleak taldeek** (6); **abertzaleak taldeko** (52); **abertzaleak taldeko legebiltzarkide** (10); **abertzaleak taldeko legebiltzarkideak** (11); **abertzalearen aurka** (20); **abertzalearen aurkako** (20); **abertzalearen eskaintza** (6); **abertzalearen eta** (17); **abertzalearen izenean** (8); **abertzalearen kontra** (11); **abertzalearen kontrako** (13); **abertzalearen oinarri** (6); **alde ezker abertzaleak** (6); **alderdi abertzaleak** (38); **alderdi abertzalearen** (9); **baina ezker abertzaleak** (7); **da ezker abertzaleak** (15); **da ezker abertzalearen** (20); **dira ezker abertzalearen** (6); **ditu ezker abertzaleak** (9); **du ezker abertzaleak** (39); **du ezker abertzalearen** (8); **du sindikatu abertzaleak** (11); **eta abertzaleak** (35); **eta ezker abertzaleak** (45); **eta ezker abertzalearen** (40); **eta ezker abertzaleari** (7); **eta ikasle abertzaleak** (11); **eta sozialista abertzaleak** (17); **ezker abertzaleak** (700); **ezker abertzaleak azken** (6); **ezker abertzaleak bere** (10); **ezker abertzaleak bergarako** (6); **ezker abertzaleak bide** (7); **ezker abertzaleak deituta** (8); **ezker abertzaleak deitutako** (8); **ezker abertzaleak egindako** (17); **ezker abertzaleak eginiko** (6); **ezker abertzaleak egiten** (6); **ezker abertzaleak ere** (16); **ezker abertzaleak eta** (23); **ezker abertzaleak ez** (24); **ezker abertzaleak gatazka** (17); **ezker abertzaleak herri** (7); **ezker abertzaleak kudeatutako** (12); **ezker abertzalean** (38); **ezker abertzalearekin** (55); **ezker abertzalearen** (414); **ezker abertzalearen aurka** (20); **ezker abertzalearen aurkako** (20); **ezker abertzalearen eskaintza** (6); **ezker abertzalearen eta** (14); **ezker abertzalearen izenean** (8); **ezker abertzalearen kontra** (10); **ezker abertzalearen kontrako** (13); **ezker abertzalearen oinarri** (6); **ezker abertzalearena** (6); **ezker abertzalearentzat** (15); **ezker abertzaleari** (101); **ezker abertzaleari buruz** (7); **gazte abertzaleak** (36); **gipuzkoako sozialista abertzaleak** (10); **hautetsi abertzaleak** (10); **ikasle abertzaleak** (74); **ikasle abertzaleak eta** (6); **ikasle abertzaleak ia** (7); **ikasle abertzaleak taldeak** (21); **indar abertzaleak** (12); **korsikar abertzaleak** (6); **mugimendu abertzalearen** (12); **oposizio abertzaleak** (7); **otegi sozialista abertzaleak** (6); **sindikatu abertzaleak** (59); **sozialista abertzaleak** (195); **sozialista abertzaleak talde** (6); **sozialista abertzaleak taldea** (25); **sozialista abertzaleak taldeak** (54); **sozialista abertzaleak taldearen** (22); **sozialista abertzaleak taldeko** (45); **talde abertzaleak** (18); **talde abertzalearen** (6); **zuen ezker abertzaleak** (26); **zuen ezker abertzalearen** (10)
>
> **abertzaleek ere** (11); **abertzaleek eta** (17); **abertzaleek ez** (22); **abertzaleek ez dute** (9); **abertzaleen artean** (57); **abertzaleen arteko** (104); **abertzaleen arteko elkarlana** (17); **abertzaleen aurka** (8); **abertzaleen aurkako** (9); **abertzaleen batasuna** (85); **abertzaleen batasuna alderdiak** (6); **abertzaleen batasuna eta** (9); **abertzaleen batasunak** (90); **abertzaleen batasunak bere** (10); **abertzaleen batasunak ere** (10); **abertzaleen batasunak eta** (6); **abertzaleen batasunaren** (13); **abertzaleen batasuneko** (33); **abertzaleen batasuneko bozeramailea** (7); **abertzaleen botoak** (6); **abertzaleen boz** (6); **abertzaleen bozak** (11); **abertzaleen eta** (27); **abertzaleen kontra** (10); **abertzaleko beste** (16); **abertzaleko hainbat** (18); **abertzaleko hautetsiek** (15); **abertzaleko hautetsiek kudeatzen** (9); **abertzaleko herri** (8); **abertzaleko kide** (8); **abertzaleko kideak** (20); **abertzaleko kideei** (6); **abertzaleko kideek** (9); **abertzaleko kideen** (13); **abertzaleko militante** (15); **abertzaleko ordezkariak** (10); **abertzaleko zenbait** (9); **alderdi abertzaleei** (27); **alderdi abertzaleek** (64); **alderdi abertzaleek ez** (6); **alderdi abertzaleekin** (7); **alderdi abertzaleen** (48); **alderdi abertzaleen artean** (12); **alderdi abertzaleen arteko** (15); **alderdi abertzaleko** (7); **baiona abertzaleen** (6); **burua abertzaletzat** (6); **da abertzaleek** (6); **da abertzaleen** (13); **du ezker abertzaleko** (8); **dute abertzaleek** (9); **eta abertzaleek** (17); **eta abertzaleen** (63); **eta abertzaleen arteko** (14); **eta abertzaleen batasuna** (7); **eta alderdi abertzaleen** (7); **eta ezker abertzaleko** (37); **eta sozialista abertzaleek** (12); **ez abertzaleen** (7); **ezker abertzaleko** (311); **ezker abertzaleko beste** (15); **ezker abertzaleko hainbat** (18); **ezker abertzaleko hautetsiek** (15); **ezker abertzaleko herri** (8); **ezker abertzaleko kide** (8); **ezker abertzaleko kideak** (18); **ezker abertzaleko kideei** (6); **ezker abertzaleko kideek** (9); **ezker abertzaleko kideen** (13); **ezker abertzaleko militante** (14); **ezker abertzaleko ordezkariak** (10); **ezker abertzaleko zenbait** (9); **ezker abertzalekoak** (10); **ezker abertzaletik** (20); **ezkertiar eta abertzaleen** (6); **gazte abertzaleek** (19); **gazte abertzaleetako** (7); **hautetsi abertzaleek** (13); **hautetsi abertzaleen** (7); **ikasle abertzaleek** (24); **ikasle abertzaleen** (10); **indar abertzaleek** (13); **indar abertzaleen** (19); **sindikatu abertzaleek** (30); **sindikatu abertzaleen** (9); **sozialista abertzaleek** (33); **sozialista abertzaleen** (17); **sozialista abertzaleetako** (7); **zuen ezker abertzaleko** (7); **zuten ezker abertzaleko** (7)

---

abertzalego *iz* abertzaletasuna.

Donostian, abertzaleen eta **abertzalegoaren** kontrako manifestaldia egin da, *Basta Ya* zelarik antolatzaile buru, Espainiari atxikimendu osoa adierazi nahiz. Herria

Abertzalego suhar zein intransigentearekiko identifikazio hurbilegia mendratzen bide du euskararen hedapena, bestela nola esplika gaurko geldotze-egoera linguistikoa? Berria - Kultura

---

abertzalekeria *iz* abertzaletasun gaitzesgarria.

Abertzalekeria dago Gaz de France (- %2,79) eta Suez (- %5,78) bategiteko akordioaren atzean. Berria - Ekonomia

Energia alorreko bategite asmoetan goragalea senti daiteke, **abertzalekeriak** gidatutako erabakiak ikusita. Berria - Ekonomia

Gaur **abertzalekeria** kritikatzen zaio: eskuinik atzerakoienaren diskurtsoa bazkatu izana. Anjel Lertxundi

Maite dugu **abertzalekeria**. Iñigo Aranbarri

Xenofobia, klasismoa, naziotasuna, astero zegoen zertaz idatzi, jatorkeria, arkeria, **abertzalekeria**, hura zen emana. Iñigo Aranbarri

Narrazioetan: giza harremanen hondamendia, bilkuren estresa, euskal kulturako notableen hipokrisia, bakardadea, **abertzalekeria**, desamodioa, erakundeen ustela, heriotza... Markos Zapiain

---

abertzalekrata *iz adkor* abertzale karguduna.

Gure gizarteko arrek, notable eta **abertzalekratek** baliogabetzat jotzen dituzten irudiz debaldeko gauza batzuen fikziorat pasatzea ekarri dudala erranen nuke. Ana Urkiza

---

abertzaletasun *(ETCn **7.419** agerraldi)* **1** *iz* abertzalea denaren nolakotasuna.

Francori eskerrak emateko, zeren harek min asko egin du Euskal Herrian bainan iratzartu du **abertzaletasuna**. Menane Oxandabaratz

Etnia, **abertzaletasuna**, independentzia, kapitalismoa, sozialismoa eta antzeko kontzeptuak aztertu genituen taldean, eta, aldi berean, isilpeko lanetan sartu ginen gero eta gehiago. Rafa Egiguren

Nazionalismoa eta **abertzaletasuna** bereiziz. Berria - Kultura

Guretzat, euskara ardatza da, eta **abertzaletasuna** eta euskaltzaletasuna bereizi egin beharko litzateke, eta baita muga politiko eta kulturalak ere. Berria - Kultura

Nahiz eta garai hartan - **abertzaletasuna** eta euskaltzaletasuna sendoago eta osasuntsuago zirelako, nonbait- oraingo aldean dezente gehiago saltzen nuen. Ramon Saizarbitoria

Gu abertzaleak gara, gutxiengoa geure herrian, horregatik elkartuko gara komeni zaigunarekin, komeni zaigun unean, komeni zaigun bezala, kontua aurrera egitea baita, **abertzaletasuna** haztea eta herri honentzat proiektu bideragarri bat lortzea. Hasier Etxeberria

Eta bestela dioten arren (ez dute egia aitortuko, noski, aitzakiekin mozorrotuta azaldu baizik), badakite **abertzaletasuna** ahuldu beharrean indartu egin duela erasoak. Migel Angel Mintegi

Irakurria nuenez, Kubako gazte jende gehienari bost axola zitzaion **abertzaletasuna**. Jon Muñoz

Muñagorri zaharxeagoa izatea, osterantzean beti elkarrekin ibiliak ziren, gure herrian **abertzaletasunaren** hazia zabaltzeko lanean. Xabier Mendiguren Elizegi

Muñagorri izan zen gure herrian **abertzaletasunaren** zuzia piztu eta indartu zutenetako bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta Baionako Seminarioan ez zen oraino sartua **abertzaletasunaren** pozoi ateoa, erranen zutenez zenbaitek. Piarres Aintziart

Abertzaletasunaren barruan dauden bi kultura politikoen hutsak zituen hizpide: [...]. Txema Ramirez de la Piscina

Hizkuntza bihurtzen da **abertzaletasunaren** arazo erabakigarria, [...]. Joseba Zulaika

Loak hartu eskualde horretan, Iparraldeko umeak barne kontatuagatik, errefuxiatuen haurrentzat, Hegoaldetik jinarazi irakasleekin funtzionatzen zuten eskola militanteak sortu ziren eta, euskara zela medio, sekula ezer errebindikatu ez zuen euskaltzaleen mugimenduari **abertzaletasunaren** txertoa egin zitzaion. Itxaro Borda

Sasoi berean, Baionako Zabal hilabetekarian irakur zitekeen artikulu zorrotz bat, salatzen baitzituen militarismoak **abertzaletasunari** egin ziezazkiokeen kalteak. Piarres Xarriton

Orain, **abertzaletasunari** edo nazionalismoari egin nahi zaio gerra, eta biolentziaren kausa **abertzaletasuna** omen da. Joxe Azurmendi

Kontu hauek ulertzen hasi zinenetik konturatuko zinen **abertzaletasuna** eta euskara elkarrekin loturik agertu izan direla, banatu ezinik bezala, eta hala ikusten ditu jendeak ere. Pello Salaburu

Handik denbora batera, ez nituen jasaten panarabiartasunaren eta Baas-en **abertzaletasunaren** aldeko kantak eta hitzaldiak. Juan Kruz Igerabide

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Abertzaletasun berriaren zutabe ideologikoak hauek ziren: [...]. Joseba Zulaika

Neska ironikoa zen Beatriz, Imanolekin asko sartzen zena, eta sarritan Imanolen uste politikoak ziren haren gezi dialektikoen helburua: beraren **abertzaletasun** sutsua, eta, batez ere, beraren ezkerkeria marxista-leninista. Iban Zaldua

%100 Basque hau, narratzailearen arima bezala, erbestean dago kili-kolo, itsaso zabalean galdua, **abertzaletasun** ortodoxoaren kaia dagoeneko utzia baina inongo beste kaik abegi egiten ez diola. Markos Zapiain

Horra zergatik, egiazko eta legezko **abertzaletasun** zuzenetik bereizi behar diren beste herrien gutiesteko eta haien irensteko axolarik ez duten nazionalismo gaiztoak. Piarres Xarriton

Xabier Letek ere **abertzaletasun** poetikoaren beharra aipatu du. Txema Ramirez de la Piscina

Abertzaletasun bizkor baten adierazpen sutsua. Jon Alonso

Eta **abertzaletasun** tradizionala gogor salatzen dute: [...]. Joseba Zulaika

Idazle latinoamerikarren **abertzaletasun** antiespainolaren aurka. Joxe Azurmendi

Eta nago, denboraren buruan, jelkideen sinbologia berbera jaso ote duen ETA inguruan sortu den **abertzaletasun** iraultzaile negartiak ere. Patziku Perurena

Irlandar **abertzaletasuna** indarrean zegoen garai haietan. Irene Aldasoro

Gauza bera aurkitzen dugu beti: tokiko **abertzaletasunerako** eta askatasun pertsonalerako deiak sortarazten duen erresistentziak konkistatzaile guztien ahaleginak hausten ditu. Iñaki Mendiguren

Zure familiarekin eta sentimenduekin estuki lotutako arrazoiak medio, ez zenuen ikusi benetako **abertzaletasuna** ez zegoela burgesiak aspalditik erosia zuen alderdi zaharrean, gurekin baizik. Xabier Montoia

Orduan, benetako **abertzaletasunak** eztanda egingo du arima guztietan; eta bere indar eta garbitasun osoz aginduko du. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Une nahasiak izanik ere, aitzinerat egin zuten beti, eta oinarrizko **abertzaletasun** bati sustapena ematea erdietsi. Filipe Bidart

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hala ere, **abertzaletasun** punttu batek bultzatuta, Herbehereetako bandera jarri ohi zuen mastaren gorenean ontzi espainiarrei eraso egitean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Abertzaletasun kontu bat da, zerbait soziala. Koldo Biguri

Ingeles kapitalak Portugalen inbertituko balira -ez da halakorik egiten ordea, arriskuagatik eta **abertzaletasun**-arrazoiengatik-, hala dio Ricardok, "Ingalaterrako kapitalistak eta bi herrialdeetako kontsumitzaileak irabazian aterako lirateke dudarik gabe, oihala nahiz ardoa Portugalen ekoitziko balira" Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abertzaletasun berri (4); **abertzaletasun berri bat** (3); **abertzaletasun horren** (3); **abertzaletasuna bera** (3); **abertzaletasuna eta** (8); **abertzaletasuna eta trikitia** (3); **abertzaletasuna ez** (5); **abertzaletasunak izan** (3); **abertzaletasunaren arteako** (4); **abertzaletasunaren arteako agiritegian** (4); **abertzaletasunaren aurka** (5); **abertzaletasunaren aurkako** (4); **abertzaletasunaren eta** (7); **abertzaletasunaren kontrako** (3); **abertzaletasunari buruz** (3); **arteako abertzaletasunaren** (3); **bere abertzaletasun** (3); **bere abertzaletasuna** (4); **da abertzaletasuna** (3); **edo abertzaletasuna** (3); **eta abertzaletasun** (7); **eta abertzaletasuna** (16); **eta abertzaletasunak** (3); **eta abertzaletasunaren** (17); **euskal abertzaletasuna** (8); **euskal abertzaletasunak** (4); **euskal abertzaletasunaren** (16); **euskal abertzaletasunari** (6); **euskal abertzaletasunari buruz** (3)

---

abertzaletu, abertzale(tu), abertzaletzen da/du *ad* abertzale bihurtu.

Juanito Muñagorri **abertzaletu** zen arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Behin Nafarroa **abertzaletua** dagoenean eta gizarteak erabakitzen duenean Nafarroaren izaera estatu espainiarrak zein frantziarrak errespetatu behar dutela, orduan izango da alderdi bakoitzak bere planteamendu sozialak egiteko ordua. egiazkoak ziren Intxortan hil ziren mendizale gazte haiek, Zaperok **abertzaletutakoak**: Errekaldeko Joxemari, Estankoko Antonio Sagastume, Florentxio Imaz eta Olegario Alvarez. Berria - Euskal Herria

---

abertzaletze *iz* abertzale bihurtzea.

Pasarte hunkigarri horretan ederki suma liteke, ongi erreparatuz gero, aldez aurretik aipatzen nuen sinbologia, papagorriaren kristautze, **abertzaletze**, iraultzaletze kontua dela eta. Patziku Perurena

---

abertzalismo *iz* abertzaletasuna.

Abertzalismoak asmatu dituen jatorkeria eta arrazakeria asko lotsagarri utzi beldurrez. Patziku Perurena

---

aberzale ik **abertzale**.

---

abesarazi, abesaraz, abesarazten du *ad* abestera behartu, kantarazi.

Umilazioak eta irainak: polizia taldea goraipatuz oihukatzera behartzea, ereserki faxistak **abesaraztea**, sexu arloko umilazioak... Berria - Harian

---

abesbatza *(ETCn **9.767** agerraldi; cf **koru** ETCn **4.103**)* **1** *iz* abestalde nagusia. ik **koru**.

Mendizale taldea bildu zuen, gobernadoreak debekatu zion aldizkari bat abiatu zuen, **abesbatza** zuzendu zuen, zinema aretoa zabaldu zuen. Koldo Izagirre

Hizlaria berdegunetik mintzo ohi da, eta noizbehinka, abeslariren batek, koralen batek edo **abesbatzen** batek zuzenean abesten du berdegunetik. Berria - Kirola

- **Abesbatza** bat ere sortu zuten gure aitonak-eta. Xabier Mendiguren Elizegi

On Joakinek zuzentzen zuen herriko **abesbatza** horretan ezagutu genuen elkar Arantxak eta biok. Iban Zaldua

Iruñean beharbada entzunen duk katedraleko **abesbatza**, hori duk Nafarroako musika erakunde zaharrena. Michel Oronoz

Izarraren itzalpean, egun hotela den eraikin erraldoiaren aurrean, emakumezkoen **abesbatza**, mikrofonoa eta diskurtso ofiziala; ondoren, umeak, hamabost bat, olerki zatiak esaten, bakoitzak ahal duen moduan. Edorta Jimenez

Musikariekin batera, hamar ahotsez osaturiko **abesbatza** zegoen, haietatik sei ume-ahotsak, Vienako estilorik petoenean. Felipe Juaristi

Plaza berean, kiosko aldean, **abesbatzak**, txalapartariak, trikitilariak, bertsolariak eta antzerkia izanen dira. Berria - Euskal Herria

Zazpi **abesbatzak** hartuko dute parte igandean Antiguako lehiaketan. Berria - Kultura

Behin joan nintzen **abesbatzak** entzutera, eta beste behin frontoira ere bai, jota jaialdi bat entzutera. Arantxa Iturbe

Inaugurazio festarako, On Camillok egitarau polita prestatu zuen: **abesbatzaren** kantaldia, atletismo lehiaketak eta futbol partida. Koldo Biguri

Begi urdin distiratsuko emakume itsu bat zen **abesbatzaren** zuzendaria. Xabier Olarra

Lehen zatian, 22 emakumez osatutako **abesbatzak** lau pieza eskainiko ditu *a capella*. Berria - Kultura

Xatz Eskifaia, berriz, emakumeez osatutako **abesbatza** da, eta Alaitz Guridik zuzenduko du. Berria - Kultura

Igande honetan, Azaroaren 10-an, 16 orenetan, kantaldi eder bat antolatzen du Iparraldeko **Abesbatzen** Elkarteak, Kanboko elizan. Herria

Arabako Nazioarteko **Abesbatzen** Astean 211 kantari ariko dira. Berria - Kultura

Bilbao Orkestra Sinfonikoak 2003-04ko denboraldiari amaiera emango dio gaur eta bihar, Andra Mari **Abesbatzarekin**. Berria - Kultura

Eguerdiko hamabietan, 40 mosso boluntariok osaturiko talde batek, jairako jantzirik, ohore egingo dio senyera-ri, Sant Jordi **abesbatzak**, Kataluniako Orfeoiak eta Puig-reigeko Polifonikoak Els Segadors kantatu bitartean. Berria - Mundua

Landarbaso **abesbatzak** "erronka" moduan hartu du biharko ikuskizuna. Berria - Kultura

-Ortzegun aratsean, Donibane Lohizuneko elizan, Arin taldeko kantariak eta Coro Easo **abesbatza**. Herria

Hainbat **abesbatzatako** arduradunek azpimarratu dute inoiz ez zaiela horrelakorik gertatu. Berria - Kultura

2 (izenondo, izenlagun eta kidekoekin)

Cantabriako **Abesbatza** Lirikoa eta Pablo Sarasate Orkestra izango dira Angelo Cavallaroren agindupean. Berria - Kultura

Cor Madrigal **abesbatza** mistoa eskarmentu handiko taldea da eta ondo eraman zuen berari zegokion ardura handia. Berria - Kultura

Landarbaso **abesbatza** gaztea, Hungariako Bela Bartok lehiaketan. **Abesbatza** onenen elkargune. Berria - Kultura

"Onginahizko **abesbatza** honetan", dio berak, "ez dut emakume-ahotsik entzuten". Oskar Arana

Bertan, Nazioarteko **Abesbatzen** Lehiaketako sariak banatu zituzten atzo. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Abesbatza zuzendariek kontuan hartu behar dituzten oinarrizko mugimenduak eta emanaldi batean jarraitu beharreko alde teknikoa irakatsi nahi dizkiete ikasleei. Berria - Kultura

Abesbatza Lehiaketa, munduko **abesbatza** eskola ainitzen artean, hala nola Bielorrusia, Kanada eta Argentinako batzu, orotarat hogoi bat koro, denak kalitate handikoak. Herria

Hungariako **abesbatza** eskolako semea izanik, Kodalyren, Bardosen eta Bela Bartoken lan bana sartu nahi izan dut programan. Bilboko **Abesbatza** Elkarteak lau kontzertu egingo ditu asteburuan Lisboako Festa da Musica jaialdian. Berria - Kultura

Filipek aspaldidanik saila jarraikitzen du, izan dadin dantzan, musikan edo **abesbatz** lanean. Herria

Abesbatza eta organo kontzertuak, bertso emanaldiak. Joseba Zulaika

Era berean, asko **abesbatza** zuzendaritza ikasleak izanik, maisuaren lana sakon aztertzeko bidea ematen die eskolak. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Idazlearen gogamenean dagoen kaosa, "ahots **abesbatza**", egitura ezegonkor batean ordenatu beharra du sortzaileak. Berria - Kultura

Oñatiko Ganbara **Abesbatzaren** hamargarren urteurrena ospatzeko, musika zikloa egingo dute bihartik aurrera. Berria - Kultura

Dissidenten taldearekin batera, Iruñeko Ganbera **abesbatzak** parte hartuko du kontzertu horretan Herri **Abesbatza** handiak, Jerry Smithek zuzenduta, kontzertu berezia eskainiko du Donostian. Berria - Kultura

Haur **abesbatzen** alorrean, Txinako China Lily Children Choir nagusitu zaie Errusiako Poliot (2. saria) eta Finlandiako Voxa Aurea (3. saria) taldeei.*Boz-Alai* ume **abesbatzari** emandako trofeoa. Berria - Kultura

Bordaleko Opera **abesbatza** entzunen da. Herria

Bilbao Opera **Abesbatza**. Berria - Kultura

Euskal Herriko Parropia-**Abesbatzen** Elkargoak deitzen ditu formakuntza huntan parte hartu duten guziak Ezpeletan iraganen den ospakizunera, otsailaren 9 an, igandez. Herria

Bilboko **Abesbatza**, kontserbatorioko haur **abesbatza** eta Euskeria gazte **abesbatza**. Berria - Kultura

Asuncion **Abesbatzaren** emanaldia, Monteverdi, Scarlatti, eta Mendelsonenen obrekin. Herria

Euskal **abesbatzak** Asan. Berria - Kultura

5 irud/hed

Hiria auhen **abesbatza** bilakatu da, Ibn Arrinque Galiziarraren tropak xaxatua ihesean datorren jende horrekin guztiarekin, Alak fundi eta infernu sakonera kondena dezala. Jon Alonso

6 ***abesbatza zuzendari***

Bigarren mailako ikasleak **abesbatza zuzendariak** dira dagoeneko eta badute oinarrizko jakintza bat. Berria - Kultura

Gainera, beste hainbat orkestra eta abesbatza gidatu ditu AEBetan nahiz Europan, eta mundu osoko **abesbatza zuzendari** eta prestatzaile laudatuenetakoa bihurtu da. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abesbatza bat (4); **abesbatza batek** (4); **abesbatza da** (3); **abesbatza elkartea** (8); **abesbatza elkarteak** (8); **abesbatza ere** (6); **abesbatza eta** (27); **abesbatza kantuaren** (3); **abesbatza kantuaren europako** (3); **abesbatza lehiaketa** (5); **abesbatza zuzendaritza** (3); **abesbatzak ere** (3); **abesbatzak eskainiko** (4); **abesbatzak eskainiko du** (3); **abesbatzak eta** (23); **abesbatzak hartuko** (4); **abesbatzak hartuko dute** (3); **abesbatzak lagunduko** (4); **abesbatzak parte** (5); **abesbatzako zuzendaria** (3); **abesbatzako zuzendariak** (5); **abesbatzaren egoitza** (3); **abesbatzaren trofeoa** (3); **abesbatzen elkarteak** (8); **abesbatzen elkarteko** (3); **abesbatzen federazioak** (4); **abesbatzen lehiaketan** (3); **abesbatzen zuzendaritza** (4); **aire abesbatzak** (3); **airez aire abesbatzak** (3); **andra mari abesbatzak** (12); **andra mari abesbatzarekin** (3); **arraga abesbatza** (6); **bilbao abesbatzak** (3); **bilboko abesbatza** (20); **bilboko abesbatza elkartea** (8); **bilboko abesbatza elkarteak** (8); **bilboko abesbatzak** (5); **bilboko**

operaren abesbatza (11); **bilboko operaren abesbatzak** (6); **den abesbatza** (3); **du abesbatzak** (3); **easo abesbatza** (4); **easo abesbatzaren** (5); **easo abesbatzaren egoitza** (3); **elizan lapurtarrak abesbatzak** (3); **eta abesbatza** (11); **eta abesbatzak** (7); **eta abesbatzaren** (4); **eta abesbatzen** (3); **eta arraga abesbatza** (3); **eta bilboko abesbatza** (4); **etorburu abesbatza** (13); **etorburu euskal abesbatza** (3); **euskal abesbatza** (3); **euskal herriko abesbatzen** (10); **euskaldunok abesbatza** (3); **ganbera abesbatza** (4); **gaurko euskaldunok abesbatza** (3); **gazte abesbatzen** (7); **hainbat abesbatza** (3); **haur abesbatzak** (5); **haur abesbatzen** (6); **herriko abesbatza** (3); **herriko abesbatzen** (10); **herriko abesbatzen elkarteak** (5); **herriko parropia abesbatzen** (3); **hodeiertz abesbatza** (3); **hodeiertz abesbatzak** (8); **iparraldeko abesbatzen** (4); **iparraldeko abesbatzen elkarteak** (3); **kantilena abesbatzarekin** (3); **landarbaso abesbatza** (4); **landarbaso abesbatzak** (6); **landarbaso abesbatzak eta** (3); **lapurtarrak abesbatza** (3); **lapurtarrak abesbatzak** (6); **lapurtarrak abesbatzak eskainiko** (3); **mari abesbatzak** (12); **mari abesbatzarekin** (3); **musika bilboko abesbatza** (4); **nafarroako abesbatzen** (4); **nazioarteko abesbatzen** (5); **oldarra abesbatza** (3); **oldarra abesbatzarekin** (3); **opera abesbatza** (4); **operaren abesbatza** (11); **operaren abesbatzak** (6); **orkestra eta abesbatza** (3); **osaturiko abesbatza** (3); **parropia abesbatzen** (3); **tolosako abesbatza** (3)

---

abeslari *(ETCn **11.516** agerraldi; cf **kantari** ETCn **19.145**)* **1** *iz/izond* abesten duena.

Kantarien, barkatu, **abeslarien** artean, Xabier Lete. Iñigo Aranbarri

Gaztetan amets egiten dugunean, batzuek suhiltzaile izan nahi dute, besteek mediku, irakasle, **abeslari**, txirrindulari eta gehienek futbolista. Berria - Kirola

Kasik partida guztietan omentzen dute norbait [...], hizlaria berdegunetik mintzo ohi da, eta noizbehinka, **abeslariren** batek, koralen batek edo abesbatzen batek zuzenean abesten du berdegunetik. Berria - Kirola

"Zeruan beza atseden" kantatu zuenean **abeslariak**, aberri zaharreko emakumeak bezala, bere onetik aterata aritu zen emakumea negar-zotinka. Koro Navarro

Jaka urdina kendu eta zuria jantzita agertzen ziren eszenatoki berera, **abeslari** batekin. Jon Maia

Gauza haiez guztiez hasi zen hizketan hantxe, ukalondoak salmahai gainean, eta ile adats beltza kopetan: dantzatokiak, orkestinak, **abeslariak**. Josu Zabaleta

Alexandrak kulebroiak egiten zituen Venezuelan, eta orain **abeslaria** da bere mutilagunaren taldean. Harkaitz Cano

Antzerkigilea zen, eta bi alaba koruko **abeslari** zituen. Josu Zabaleta

Biktima sindikatu horretako kide zen, eta oso ezaguna zen, Indarra taldeko **abeslaria** izan baitzen. Berria - Ekonomia

Besteak beste Loquillo **abeslariak**, Abraham Olano kirolariak, Juanito Oiarzabal mendizaleak, Ramon Zallo irakasleak eta Toti Martinez de Lezea idazleak atxikimendua adierazi dute. Berria - Euskal Herria

Huraxe da *La donna del lago* operako rol nagusia duen **abeslaria**. Berria - Kultura

Honakoan *Credence*ko **abeslaria** nintzela imajinatuz etorri nauk: *Oh Susie Q, oh Susie Q*. **Abeslaria** eta akonpainamendu-jolea elkarrekin irten ziren. Bernardo Atxaga

Instrumentu tatariar haien hotsak eta **abeslariek** eztarriz kantatzen zituzten doinuek harmonia bitxia osatzen zuten. Karlos Zabala

Irlandar tonalitate zaharrean abestua ematen zuen abestiak, eta **abeslariak** zalantzakor zirudien bai letran eta bai ahotsean. Irene Aldasoro

Abeslaria hegan doanean, albiste onen iragarlea da eta ez du gezurrik esaten. Itxaro Borda

Atzo Afganistango telebista publikoak atzera bota zuen astelehenean indarrean jarri zuen erabakia eta berriro ere pantaila aurrean emakume **abeslariak** agertzea debekatu zuen, herrialdea oraindik ere horretarako prestatuta ez dagoela argudiatuta. Berria - Mundua

Orfeoiko **abeslariak** ez daude horrelako emanaldietara ohituta. Berria - Kultura

Badira panpin **abeslariak**, negartiak, puzkertiak, kakatiak... Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Abeslari lirikoak ziren bere gurasoak, eta aita, Robert McFerrin Senior, New Yorkeko Metropolitan orkestrako lehenbiziko bakarlari beltza izan zen. Berria - Kultura

Amaigabeko gaua grabatzeko Gari *Hertzainak* taldeko **abeslari** ohiaren "luxuzko kolaborazioa" eduki dute. Berria - Kultura

Zuzenekoetan jotzen ditugun bezala, halaxe grabatu ditugu **abestiak**. Berria - Kultura

Pianista, soinu jotzaile eta **abeslari** gazte honek tradiziotik edaten du, baina ukitu garaikidea ematen die bere konposizioei. Berria - Kultura

Brasilgo **abeslari** ospetsu honek nazioarteko hainbat sari jaso ditu. Berria - Kultura

Zinema izarrek, **abeslari** ezagunek eta bozetan murgilduta dauden hainbat taldek dirua, talentua eta denbora eman dituzte jendea bozkatzera deitzeko. Berria - Mundua

Martxoaren 3ko biktimen omenez, emanaldia eskaini zuen **abeslari** katalanak, lepo bete zen Buesa Arena polikiroldegian. Berria - Harian

Bost urte agertokietan jo gabe egon ondoren Silvio Rodriguez **abeslari** kubatarrak bira berri bat hasi du. Berria - Kultura

Abeslari italiarra ez da izan, ordea, Tebaldi aingerutzat jo duen lehenengoa, Arturo Toscanini handiak ere hitz bera erabili baitzuen askotan sopranoaren ahotsa definitzeko. Berria - Kultura

Hirukotearen ondoren, Rebekka Bakken **abeslari** norvegiarrak Takuya Nakamura (pianoa) Dieter Ilg (baxua), Jojo Mayer (bateria) eta Martin Koller (gitarra) izango ditu lagun taula gainean. Berria - Kultura

Victor Jara **abeslari** txiletarra hil eta hogeita hamaika urte geroago. Berria - Mundua

Abeslari bizkaitarraren beraren esanetan, "disko indartsu eta biribila" egin du. Berria - Kultura

Brasildar **abeslariak** Stan Getz-ekin plazaratutako abesti sorta XX. mendeko klasikotzat jo daiteke. Berria - Kultura

Argala da, eta **abeslari** ingelesak bezala janzten da. Berria - Kultura

Stellinha Egg imitatzen zuen, eta Inezita Barroso, eta São Pauloko barrenaldeko beste **abeslari** folkloriko batzuk, eta mundu guztiak entzuten zion, herriaren arimarekin bat egiten ari zirelakoan. Karlos Zabala

Gaur gauean, iraganeko **abeslari** bikain horien guztien izenak entzunda, iruditzen zait, eta hala aitortzen dut, garai estuago batean bizi garela. Irene Aldasoro

Aktore eta **abeslari** famatuak maiz joaten ziren tokia. Mikel Hernandez Abaitua

Louis Armstrong: Musikari eta **abeslari** ezaguna. Berria - Gaiak

Zenbat buelta eman ote nizkien **abeslari** triste guztien diskoei bakardadea konpartitzeko asmotan? Lander Garro

Protagonismoa eman nahi izan zieten abesti abertzalei, **abeslari** karismatikoei eta Organyako Udaletik ekarritako senyera (Kataluniako bandera) bati, 800 urte bete baitira Organyako Predikuak, katalanezko lehen testuak, idatzi zirenetik. Berria - Mundua

Eman dezagun Jim Morrison delako **abeslari** sinpatiko horren omenez soneto bat idazten dudala. Harkaitz Cano

Ingalaterran Poeta Erramuduna Erregeren gorteko kargudun izaten da, eta eskeleto dantzari gisa jardun ohi du gorteko edozein festatan eta **abeslari** mutu gisa errege-hileta guztietan. Xabier Olarra

Zelaien urrina ase arte aditzen uzten zion usaimenari, eta belarriei, berriz, liluratzeraino gozatzen **abeslari** airetarren ahotsez. Jose Morales

Colin Meloy ez da aparteko **abeslaria**, baina istorioak asmatzeko eta kontatzeko daukan gaitasuna zaila da aurkitzen. Berria - Kultura

Agertokian bata bestearen ondotik azaltzen ziren gizonezko nahiz emakumezko **abeslariak**, eta batzuetan baita eskujokariak eta akrobatak ere. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iraupen luzea eta **abeslari** kopuru handia direla-eta, gutxitan taularatzen diren lau pera errusiarren filmaketak eskainiko ditu datozen hiru hilabeteotan Donostiako Orfeoiak bere egoitzan. Berria - Kultura

Cesar Carazok **abeslari** lana ezin hobeto bete zuen bere ahots deklamatibo eta argiarekin. Zelaian denbora pasa eta jolasak ere ez zituzten eskas: txistulariak, zaku karrerak, **abeslari** eta dantzari saioak, bertsolariak... Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Laszlo Heltay maisu eta zuzendari hungariarraren aginduetara, koru **abeslariek** Heltayk berak aukeratutako programa zabala landuko dute sei egunean Hondarribiko Juan Sebastian Elkano aterpetxean, Lehen rock **abeslari** eta taldeak (Niko Etxart, Errobi, Ruper Ordorika), garai bat finkatu zutenak (Itoiz, Hertzainak, Kortatu, Negu Gorriak). Berria - Kultura

Hip hop **abeslarien** nagusitasunari aurre egin zion bakarra Luther Vandross soul kantaria izan zen. Berria - Kultura

Gure artean ezagun egin zareten fado **abeslari** gehienak emakumeak zarete. Berria - Kultura

Lynden David *soul* **abeslaria** hil da, minbiziak jota. Berria - Kultura

'Walk the line', Johnny Cash *country* **abeslari** handiari buruzko filma gaur iritsiko da aretoetara. Berria - Kultura

Flamenko **abeslari** madrildarra atzo hil zen Malagan, Andaluzian. Berria - Kultura

Pentsa zitekeen opera-**abeslaria** hurbiltzen ari zela, eta opera serioa, benetako opera, orduantxe hasiko zela. Jose Morales

5 irud/hed

Igela **abeslari** maratza da, ahots on baina belarri txarrekoa. Xabier Olarra

6 ***egile abeslari*** *(corpusean ez dago; ETCn **262** agerraldi)* ik **kantautore**; **abestigile**.

Egile abeslaria edo kantautorea da berak eginiko kantak abesten dituen abeslari kantaria. ETC-entziklopedia

Kantagintza Berriak, ideologia berriak sartzeaz gain, **egile abeslari** edo kantautorearen irudia ekarriko du agertokira. ETC-entziklopedia

Formaren ikuspegitik, Kataluniako, Frantziako eta Amerika Ameriketako hainbat **egile abeslari** hartu zituzten eredutzat. ETC-entziklopedia

Artista askok aitortu dute eragin egin diela, eta musikarako idatzitako letrak **egile abeslariaren** paradigma gisa geratu dira. ETC-prentsa

2003ko urtarrilaren 10etik 26ra bitartean egingo den Getxoko Kantuketan zikloan musika klasikoa nahiz elektronikoa entzuteko aukera izango da; rock, ska, hip-hop, soinu elektronikoak, lirika eta **egile abeslarien** musika. ETC-prentsa

Barnasants **egile abeslarien** jaialdirik garrantzitsuenetakoa da, eta ehundik gora kontzertu eskaintzen dira bertan. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abeslari brasildarrak (3); **abeslari estatubatuarrak** (3); **abeslari eta gitarrista** (4); **abeslari eta gitarristak** (7); **abeslari eta musikariak** (3); **abeslari gisa** (4); **abeslari ingelesak** (3); **abeslari kubatarrak** (4); **abeslari ohiak** (4); **abeslari talde** (4); **fado abeslari** (6); **rock abeslari** (3); **zituen abeslari** (3); **zuen abeslari** (3)

abeslaria ere (3); **abeslaria hil** (3); **abeslaria izan zen** (5); **taldeko abeslaria izan** (4)

abeslariak berak (4); **bi abeslariak** (4); **dio abeslariak** (3); **du abeslariak** (8); **emakume abeslariak** (4); **gitarrista eta abeslariak** (3); **taldeko abeslariak** (8); **zuen abeslariak** (7)

abeslarien artean (5)

---

abespeluan *adlag* presaka, nolanahi, itsumustuan.

Jakin behar duzunez, irudi horiek ez dira **abespeluan** aukeratzen, baizik eta kontu handiz, oso lan neketsua behar dutelako. Javi Cillero

---

abesperen *iz* abeslariez mintzatuz, baxua.

Heldu den martxoaren 13 an Parisen kantaldi bat ukanez eta ekainean Italiarakoitzuli baten mentura, ETORBURU abesbatzak hiruzpalau boz eder gehiago onhart lezazke, eta partikulazki abetsoli (tenor) bat eta **abesperen** (basse) bat. Herria

---

abestalde *iz* abeslari taldea.

Erdiko plaza handian, zale sutsuen lau lerroko birunda inguruan, "Volgako marinelen" **abestalde** bat lurrean eseri eta txalupan baleude bezala egiten zuten arraunean, orkestra zuzendaria buru zutela, zeinak alegiazko ontzi haren lemazain egin-egina irudi zuen! Karlos Zabala

Igoarazi nituen Judako buruzagiak harresiaren gainera eta bi **abestalde** egin nituen. Lehenengo **abestaldea** eskuinera joan zen harresi gainean, Zabortegiko ate aldera. Elizen arteko biblia

Bi **abestaldeak** Jainkoaren etxe aurrean gelditu ziren, bai eta ni eta lagun nituen agintarien erdiak ere. Elizen arteko biblia

Berandu esnatu nintzen nire azkeneko goizean, Llanstephango itsasoak belaontzi distiratsuak, bidaiarienak bezain luzeak, zeramatzan amets batetik aterata; eta Sticks-eko zuhaiztian, **abestalde** zerutiarrek, bardoz jantzita eta latorrizko botoiekiko txalekoekin, galesera bitxi batez abesten zieten marinelei. Koro Navarro

---

abestaldi *(ETCn **8** agerraldi; cf **kantaldi** ETCn **936** agerraldi) iz* kantaldia.

Dean Smith tenor lirikoak biribil abestu zuen Lohengrin, lirismoa eta misterioa azaltzen duen pertsonaia: atera zuen ahotsa ederra da maila guztietan, aise gainditu zuen iraupen luzeko **abestaldia**. Berria - Kultura

Salbuespeneko ahotsak izan gabe, afinazio zehatza, bel canto-aren jakinduria, entrega eta gustua adierazi ziguten **abestaldiaren** barrena. Berria - Kultura

Beste maila batean kokatu behar badugu ere, Frontal baritonoaren **abestaldia**, oro har, ona izan zen. Berria - Kultura

Gustatu zitzaigun Ruiz tenorraren ahotsa, eta ederki aritu ziren Fei eta Calderon **abestaldi** laburretan. Berria - Kultura

Goeldener mezzoak, bestalde, **abestaldi** ziurra eta ona egin zuen zabalera handirik ez daukan ahotsarekin. Berria - Kultura

---

abeste *iz* kantatzea.

Era berean, aipatu zuenez, presoek hilabeteak edo urteak iraun dezaketen bakartzeak jasaten dituzte, eta ohikoa da bisitak murriztea, batzuetan "ozenegi hitz egiteagatik edo **abeste** hutsagatik". Berria - Euskal Herria

---

abesti *(ETCn **25.380** agerraldi; cf **kanta** ETCn **18.002** agerraldi eta **kantu** ETCn **75.376** agerraldi)* **1** *iz* ahapaldietan banatutako neurtitza, doinu baten gainean kantatzen dena, eskuarki zaharra edo herrikoia ez dena.

Gipuzkoan gerrari zegokion **abesti** bat ere kantatzen zen, euskaraz. Koro Navarro

Abesti hori bera kantarazten zieten ikasleei kolegio guztietan, besoa altxatuta. Mikel Hernandez Abaitua

Bat-batean, gelatik zetorren garrasi beldurgarri batek **abestia** eten zuen. Julen Gabiria

Hankapalok mendean zeuzkan, noski, musika-aparatuaren martingala guztiak, eta Gainsbourg-Birkin bikotearen hatsanka-patxanka saioa amaitzen zenean hasieratik abiarazten zuen **abestia** automatikoki. Xabier Mendiguren Elizegi

Sortu dituzten **abestiak** jendearekin partekatzeko irrikan daude orain. Berria - Kultura

Elkarri egindako begiratu pare bat aski ziren **abestiak** bukatu eta hasteko. Unai Iturriaga

Warren White-ren **abesti** bat bozgorailuetatik indar handiz entzuten zen Harlemgo gau pisu, busti, izutian. Iñaki Zabaleta

Isilik egoteko eta Mariaren **abestia** entzuteko esan zien Donnelly andreak haurrei. Irene Aldasoro

Buruan orduan oso modan zegoen **abesti** baten errepika abestuz nindoan. Joseba Urteaga

Gorazarreak eta **abestiak** kantatuz zihoazen, etsai beldurgarri hura Israeldik bota ahal izan zutelako. Elizen arteko biblia

Batik bat Imanol Urbietaren **abestiak** jotzen dituzte. Berria - Kultura

Abesti batekin arrakasta lortzen duen rock taldea da militantea. Lander Garro

Abestiaren lehen notak entzun zituenean, alabaren kapa hartu eta esan zion senarrari: [...]. Irene Aldasoro

Kantuan hasi ginen guztiok eta **abestiaren** erritmoak gure ibilera berdindu zuen eta militartu. Anjel Lertxundi

Kantari frantsesen **abestiak** entzunarazten zizkigun maiz eskolan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hau zen **abestiaren** leloa: [...]. Koro Navarro

Entzuna izango duzu, noski, **abestia**: "Irrikatzen nago Sirakusa ikusteko". Jon Muñoz

Amaieran, musika klasikoa jotzen bukatu ordez, sekulako desmadrea antolatzen genuen, jazz kutsuko **abesti** bat haritzat harturik. Iban Zaldua

Abestia euren aldarria zabaltzeko erabiliko dute, eta CDa "txoko guztietan" jarri dute salgai. Berria - Euskal Herria

Stadium Arcadium diskoko **abestiak** Los Angelesko alderdirik ilunenaz mintzo direla esan du Kiedisek. Berria - Kultura

Izan ere, *Chatty Chatty* **abestiaren** bertsioa da Kortaturen **abestia**. Berria - Harian

Modan dagoen **abestia** da pelikula bati esker. Lutxo Egia

Irratia *country* **abesti** ezagun bat ematen ari zen eta Tom ere "nire pentsamenduan zaude zu beti" kantari. Iñaki Zabaleta

Zuen jaiak dolu bihurtuko ditut, zuen **abestiak** negar-kantu. Elizen arteko biblia

Senarra ere ia erotu zait, hor bainabil beti jirabiraka, **abesti** hori ahopetik kantaka. Mirentxu Larrañaga

Gainerako bi **abestiak** grabatuta genituen. Berria - Kultura

Zuzenekoetan jotzen ditugun bezala, halaxe grabatu ditugu **abestiak**. Berria - Kultura

Sarriegi baino urtebete lehenago hil zen, eta egile askorentzat idatzi zituen libretoak eta **abestiak**. Askoren artean

Biblia-txatalak eta **abestiak**. Karlos Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Izeba Juliaren **abesti** zahar bat zen: [...]. Irene Aldasoro

Hansek zigarreta bat biribiltzeari ekin zion, **abesti** alai bat txistukatzen zuen bitartean. Alberto Ladron Arana

Zer du ederrik **abesti** triste honek? Jose Morales

Ikusi orduko entzun ditugu, beti **abesti** beldurgarri bera kantatuz: [...]. Julen Gabiria

Gehienek xanpain-botila itxiak dituzte eskuan, askok purua ahoan, eta **abesti** zentzugabe berbera kantatzen dute behin eta berriro. Jon Arretxe

Hegats-pean aditzen da herioa xuxurlatzen didan **abesti** beltza. Itxaro Borda

Kantatu genituen betiko **abestiak**, oparitu Fernandori betiko gordinkeriak, baina ni ez nengoen "han". Karlos Linazasoro

Bautistaren gurasoek, euskaraz besterik egiten ez zuten bi xahar zimur, beren garaiko **abesti** monotono bat abestu zuten, Abila zen boxeoan eta **abesti** komikoak ere abesten zituen. Koro Navarro

Benetan, ez diat ulertzen zer ikusi dioan **abesti** puto horri. Iban Zaldua

Irratiaren bolumena goratu zuen andreak, Rosita Serrano txiletarraren "Roter Mohn" **abesti** arrakastatsuak sukaldeko hormak dardaratzeraino. Alberto Ladron Arana

Bazkalostean ere kantatuko ditugu **abesti** ukrainarrak. Urtzi Urrutikoetxea

Gure amak goizean etxeko lanak egitean kantatu ohi zuen **abesti** berbera, ni gaixorik, eskolara joan gabe, edo oporretan nengoela, hamaika aldiz hari entzundakoa. Mikel Hernandez Abaitua

Gaur euskarazko **abesti** bat iritsi zaizu suabe eta abisatu gabe. Lutxo Egia

Iaz hasi ziren euskal **abestiak** kantatzen, eta tarteka, bada bestelakorik ere. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kantariek **abesti**-saioa egin zuten, Jizrahias zuzendari zutela. Elizen arteko biblia

Kantariek **abesti**-saioa egin zuten, Jizrahias zuzendari zutela. Elizen arteko biblia

Airean eromenezko garrasi ozen solteak entzuten ziren: barre histerikoak, **abesti** zatiak, birao gordinak. Jose Morales

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haiekin batera Alessandro azaldu zen salara, biolinaz maitasun **abestiak** joka, senar-emazte berrien omenez baino Juvenalia maitearen minez gehiago. Felipe Juaristi

Badirudi herri-**abestia** dela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eguberri **abesti** bat. Patxi Zubizarreta

5 ***eguberri abesti***

Eguberri abesti bat. Patxi Zubizarreta

6 ***gabon abesti***

Baina kontua da Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak zuzendutako abesbatzak Hator hator mutil etxera kantatu ziela, atzo, Iruñeko espetxeko presoei eta, beste **gabon abesti** batzuk ere eskaini ondoren, espetxeko ateak berriro ondo itxi eta, alde egin zuela. Berria - Euskal Herria

7 ***gabonetako abesti*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Jaten, edaten eta **Gabonetako abestiak** kantatzen ematen genuen eguna, kinyarwandaz, frantsesez eta ingelesez, halako zalapartarekin ohitu gabeak zeuden ume askoren negarrez lagunduta batzuetan. ETC-literatura, saiakera

Margoaren aurrean zegoen eserita orain Mina andereñoa, eta **Gabonetako abestiei** ekin zien pianoan. ETC-literatura, saiakera

Bertan 8 neskatiko artzain-andre jantzita, **gabonetako abestiak** kantatzeko prest. ETC-literatura, saiakera

Trikitixa, adarra eta **Gabonetako abestien** letrak eskuan hartu eta kantari eman zioten itzuli osoa kartzelari. ETC-prentsa

Debagoieneko eta Donostiako abesbatzek ez dituzte **gabonetako abesti** ezagunak kantatuko soilik. ETC-prentsa

Herriko gurasoek eta haurrek baserritar jantzita **Gabonetako abestiak** kantatuko dituzte. ETC-prentsa

Taldeka zein bakarka eta hainbat instrumenturen presentziarekin, **Gabonetako abestiak** joko dituzte adin ezberdinetako ikasleek. ETC-prentsa

Beraientzat eredugarri diren talde handiek egin duten bezala, bazuten gogoa **Gabonetako abestien** moldaketak egiteko. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abesti askotan** (4); **abesti bat** (41); **abesti batean** (6); **abesti batek** (8); **abesti batzuk** (10); **abesti berri** (6); **abesti berriak** (11); **abesti berriak egiten** (4); **abesti biltzen** (5); **abesti biltzen ditu** (4); **abesti ederrak** (4); **abesti eta** (13); **abesti guztiak** (7); **abesti hau** (4); **abesti hori** (8); **abesti horiek** (6); **abesti jaso** (4); **abesti jo** (4); **abesti onenaren** (7); **abesti zahar** (5); **abestia ere** (4); **abestia eta** (6); **abestia kantatu** (6); **abestiak egin** (7); **abestiak egiteko** (8); **abestiak egiten** (6); **abestiak ere** (9); **abestiak eta** (9); **abestiak ez** (7); **abestiak kantatu** (4); **abestiak kantatzen** (4); **abestiaren bertsio** (4); **abestien hitzak** (7); **azken abestia** (4); **beste abesti** (4); **bi abesti** (5); **diren abestiak** (7); **diskoko abestiak** (5); **dituen abestiak** (4); **duen abestia** (5); **dute abesti** (6); **eta abesti** (25); **eta abestiak** (16); **eta abestiek** (4); **eta abestien** (4); **euskal abesti** (4); **euskarazko abesti** (4); **hainbat abesti** (6); **hamabost abesti** (4); **hiru abesti** (4); **taldearen abesti** (4); **zenbait abesti** (8); **ziren abesti** (4); **zituzten abestiak** (4); **zuen abestia** (6); **zuen abestiak** (4)

---

abestigile *(corpusean ez dago; ETCn **88** agerraldi)* *iz* kantugilea. ik **kantagilea**; **kantautore**.

Norah Jones **abestigile**, kantari eta pianista estatubatuarrak Gasteizko Jazzaldiaren azkeneko egunean joko du, uztailaren 21ean. ETC-prentsa

Roy Loney Flaming Groovies taldearen sortzailea izan zen, baita talde hartako **abestigilea** ere. ETC-prentsa

Gure Baigorri-Bastidarra, pilotari duzu, eta pilotazale, bertsolari duzu, eta bertsozale; abeslari eta **abestigile**. ETC-prentsa

Izan ere, Catherin Lee Bates **abestigile** iparramerikarrak Bilboko zarata bati eskaintzen dio pasarte bat 1900. urteko Spanish Highways and Byways liburuan. ETC-prentsa

Catherin Lee Bates **abestigile** iparramerikarrak 1850ean idatzitako testu bat du abiapuntu Erkiziaren eta Lujanbioren piezak. ETC-prentsa

Iritsiko da urteurrena, eta ekarriko dugu gogora Lete **abestigilea**, Lete poeta... eta Lete itzultzailea, zer? ETC-prentsa

2012an, bost hilabetez ibili zen kontinenteko musikari eta **abestigile** askorekin elkarlanean. ETC-prentsa

Abenduaren 10a - Natti Natasha, dominikar reggaeton, pop latino eta bachata abeslari eta **abestigilea**. ETC-entziklopedia

Aimee Anne Duffy, ezagunagoa Duffy izen artistikoaz, (Gwynedd, Gales, 1984ko ekainaren 23a) galestar abeslaria, **abestigilea** eta aktorea da. ETC-entziklopedia

---

abestigintza *iz* kantagintza.

Eta ordutik hona geure herriko kantagintzak egindako bideaz mintzatuko da Literaturatik euskal kantagintza berrira izenburupean: euskarazko **abestigintzak** egindako urratsez, bere gain hartutako erronkez, izandako oztopo eta trabez. Berria - Kultura

---

abestitxo *iz adkor* abesti xumea.

Aldatu ostatua Estatu Batuetako taberna batengatik, ipini neska ederra barraren atzean [...] eta ospe bertsua ikusiko dugu *country* kantari baten **abestitxo** honetan: [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Azkenean, nekatu eta logaletu ziren haurrak, eta Joek esan zion Mariari ea ez ote zuen, joan aurretik, **abestitxoren** bat, abesti zaharretakoren bat, kantatuko. Irene Aldasoro

Hori entzunik eta bertako datuak errepikatzearekin batera, **abestitxoren** bat tartekatuko zuen, Matxitxakon itsasargiko zaindariarekin telefono deia lotu bitartean Eskuari eragiten zion edozein bozkario-oihu entzuten zuelarik ere, eta bidean aurrera egiten zuen, **abestitxoak** kantatuz ahopetik eta edozein barre-algara hotsi aurpegi emanez. Pello Zabala

---

abestu, abes(tu), abesten *(ETCn **13.330** agerraldi; cf **kantatu** ETCn **20.604** agerraldi)* **1** *(ETCn **13.330** agerraldi; cf **kantatu** ETCn **20.604** agerraldi)* kantatu.

Donnelly andreak pianoa jo zuen haurrentzat, eta haurrek **abestu** eta dantza egin zuten. Irene Aldasoro

Maria, masailak gorri-gorri, ahots txiki dardarti batez **abesten** hasi zen. Irene Aldasoro

Ez zara, baina, ohartzen **abestean** soinuaren modulazioak gozarazten dizula. Imanol Unzurrunzaga

Orain Piak **abestu** egiten zuen, igandetan, dantzaleku bateko orkestrarekin. Josu Zabaleta

Espirituaren eraginez Jaunari **abestu** bai, baina adimenez ere bai. Elizen arteko biblia

Gobada egiten ari ziren emakumeek, zango biluziak errekan sartuta, arropa astindu eta **abestu** egiten zuten. Koro Navarro

Ereserki nazionala **abestu** zuen. Koro Navarro

-Fred Jones jaunak bere ohiko kantu berdea **abestuko** digu. Koro Navarro

Arzalluzek zarzuela **abestu** duzula jakiten badu, ikusiko duzu. Harkaitz Cano

Hileta bat nahi dut eta Ainhoa Artetak Ave María **abestu** dezala. Harkaitz Cano

Franklin andreak, Ernieren burua altzoan hartuta, *Artzainaren neska* **abesten** zuen kontralto ahots gozo, trebatuaz. Koro Navarro

Apurka-apurka, hor hasi zen jauzika, eta eskuak igurtzitzen, eta ahapeka **abesten**, eta bere buruarekin hizketan. Jose Morales

Jerusalemgo ateek bozkariozko gorazarreak kantatuko dituzte eta etxe guztiek **abestuko** dute "Aleluia! Goretsia Israelen Jainkoa!". Elizen arteko biblia

Emaitza harekin pozik, "Polly wolly Doodle" abestia **abestu** nion oso-osorik ilea garbitzen nion bitartean. Oskar Arana

Telefono-dei bat gauaren erdian, eta haren ahotsa telefonoaren beste aldean "zorionak zuri" **abesten**, beti bezain gozo eta xalo. Oskar Arana

Gure agurea ere horrela dago, ordenadore aberiatua bezala, azkenean sehaska kantak **abesten**. Joseba Sarrionandia

Ute Lemper Kurt Weil **abesten**. Lourdes Oñederra

-D'Arcy jauna -esan zion Gabrielen emazteak-, nola du izena **abesten** aritu zaren kanta horrek? Irene Aldasoro

Biek elkarrekin **abestu** zuten Bilintxen duo lañoa. Koro Navarro

Mixel Labegeriren abestian entzun eta **abestu** nuen nik lehenbizikoz: *Urte hartan gertatu zen Pazko Erramu baino lehen*. Pello Zabala

1180-1205 urte inguru horretan **abestu** zuen berak, eta gaztelu eta enparantzetan zabaldu. Pello Zabala

Azken batean, ahots politaz eta musika ederraren laguntzaz amodio-kantak **abesten** dituena bezala zara zu berorientzat: entzuten dituzte, bai, zure hitzak; bete, ordea, ez dituzte betetzen. Elizen arteko biblia

Beste batzuetan kantu bera **abestu** eta **abestu** aritzen zen. Josu Zabaleta

Poetry slam direlakoak ere antolatu ohi dituzte: alegia, erdi inprobisatuak diren errezitaldiak, paperik gabe eta hip-hop erritmoari inguratuz errezitatu edo **abesten** dituztenak. Harkaitz Cano

Martinek adierazitako lekura inguratzean, ahots bat aditu zuten, **abesten** ari zena. Koro Navarro

Emakumeak **abesten** agertzea debekatu zuen Estatuko telebistaren buru zenean. Berria - Mundua

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Azkenean inozokeriaren bat jarri dugu euskaraz eta bukaeran zorionak eman dizkiogu ongi **abesteagatik**. Harkaitz Cano

Kanta bat **abesten** hasi zen, goraki eta ahots garbiz. Jose Morales

Atsotitz-zalea ere bazen, eta mozkortzen zenean oso gaizki **abesten** zuen, batere afinaziorik gabe, baina hitzei malezia handia erantsiz. Koro Navarro

Legolasek etena egin zuen une batez, hasperen egin, eta begirada hegoaldera itzuliz, eztiki **abestu** zuen: [...]. Kantika espiritualak trebeki **abesten** dira, musika tresna gozoen laguntzaz. Agustin Otsoa

Urte berri eguneko kontzertuan sonbrailu zilarreztatu batekin abestu zuen, ondo **abestu** ere. Harkaitz Cano

Bihotz-bihotzez **abesten** zituen gorazarreak eta bere Egilea maitatzen. Elizen arteko biblia

Eta orduan amorrazioz **abestu** omen zuen Basajaunek: [...]. Pello Zabala

Gainerakoek, are gogotikago **abesten** zioten inguruan. Josu Zabaleta

Oinetakoak eranzten eta gerrikoa askatzen entzuten diot, konketan hortzak garbitzen, hasperen egiten, ahopeka **abesten**. Oskar Arana

Ahopean **abestu** behar izan zuen, ez zedin buruzagia konturatu. Koro Navarro

Rona eta patxarana edan ditugu, Mikel Markezek kantatzeari ekin dio eta denok jarri dugu gure ahotsa elkarrekin **abestuko** ditugun azken kantu horietan. Pako Aristi

Debako plazan, "Eusko Gudariak gara Euskadi askatzeko, gerturik daukagu odola bere aldez emateko" ukabilak altxatuta **abestu** da bere omenez. Joseba Zulaika

Arloteak berriro garrasika **abesteari** ekin zion eta mutilak berriro beldurtu egin ziren. Lopez de Arana

Apurka-apurka, hor hasi zen jauzika, eta eskuak igurtzitzen, eta ahapeka **abesten**, eta bere buruarekin hizketan, Soprano-ahots bat goratu zen lantegian, eta *a cappella* **abestu** Bachen kantata bateko aria: *Ich habe genug.* *Jose Morales*

Osoko profesionala da eta berdin **abestuko** dizu opera, *isil-isilik dago kaia barrenean,* edo zarzuela pieza bat. Harkaitz Cano

Frantsesez mintzatzea eta **abestea** gustatzen zitzaion, eta hori ere aitarengandik ikasia zuen seguruenik. Askoren artean

3 irud/hed

Tema eder askoak dauzka lan horrek; oboeak **abesten** ditu batzuk, hariak beste batzuk, baina, aurkezteaz aparte, apenas garatzen diren. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abesteari ekin (8); **abesteari ekin zion** (6); **abesteko aukera** (3); **abesteko era** (3); **abesteko eta** (4); **abesten ari** (18); **abesten ari diren** (3); **abesten ari zen** (5); **abesten aritu** (3); **abesten dituztenak** (3); **abesten du** (25); **abesten du teresak** (3); **abesten duen** (12); **abesten duenean** (3); **abesten dut** (4); **abesten dute** (11); **abesten duten** (6); **abesten ere** (3); **abesten eta** (8); **abesten genuen** (5); **abesten hasi** (24); **abesten hasi zen** (10); **abesten hasi ziren** (6); **abesten hasten** (3); **abesten nuen** (4); **abesten zituen** (8); **abesten zuela** (5); **abesten zuen** (32); **abesten zuten** (15); **abestera ere** (4); **abestu ahal** (3); **abestu baino** (4); **abestu behar** (10); **abestu behar izan** (3); **abestu beharko** (5); **abestu diote** (3); **abestu ditzute** (5); **abestu du** (21); **abestu duen** (3); **abestu dute** (10); **abestu egiten** (15); **abestu egiten du** (3); **abestu egiten zuen** (3); **abestu ere** (6); **abestu eta** (16); **abestu izan** (7); **abestu nahi** (3); **abestu ohi** (4); **abestu ohi zuen** (3); **abestu ostean** (5); **abestu zituen** (11); **abestu zituzten** (18); **abestu zuen** (60); **abestu zuten** (35); **abestuko ditu** (14); **abestuko dituzte** (9); **abestuko du** (28); **abestuko du gaur** (6); **abestuko dut** (3); **abestuko dute** (18); **abestuz amaitu** (3); **abestuz eta** (8); **ahizpei aholku abestua** (7); **aholku abestua** (8); **aurrean abestu** (4); **bat abesten** (9); **bat abestu** (8); **batean abesten** (3); **batek abesten** (3); **batera abestuko** (3); **batez abesten** (3); **bertso hauek abestu** (7); **bizitzari abesten** (3); **da abesten** (3); **du abesten** (6); **edo ingelesez abesten** (3); **elkarrekin abestu** (5); **emakumeek abesten** (3); **ere abesten** (3); **ere abestu** (12); **ere abestuko** (4); **eta abestea** (4); **eta abesten** (14); **eta abesten hasi** (5); **eta abestu**

(17); **eta abestu egiten** (4); **euskaraz abestea** (3); **euskaraz abesten** (5); **euskaraz abestu** (5); **euskaraz abestuz** (3); **eusko gudariak abestu** (4); **eusko gudariak abestuz** (4); **ez du abesten** (6); **gaztelaniaz abesten** (3); **ghana abesten** (4); **gudariak abestu** (4); **gudariak abestu zuten** (3); **gudariak abestuz** (4); **hasi zen abesten** (4); **hau abesten** (3); **hau abestu** (3); **hauek abestu** (7); **hauek abestu zituen** (7); **hura abesten** (3); **ingelesez abesten** (6); **ingelesez abesten zuen** (3); **jaialdian abestuko** (3); **jazz abestuko** (4); **kanta abesten** (6); **kanta abesten ari** (3); **kanta abestu** (3); **kanta abestu zuten** (3); **kanta bat abesten** (4); **kantak abesten** (3); **kantak abestuko** (3); **kantak abestuz** (4); **kantua abesten** (3); **kantuak abesten** (4); **kantuak abestuz** (3); **koruan abesten** (3); **nola abesten** (4); **obra abestuko** (3); **ondo abestu** (6); **ongi abesten** (3); **ozen abestu** (3); **zen abesten** (4)

---

abetsoli *iz* abeslariez mintzatuz tenor ahotsa.

Heldu den martxoaren 13 an Parisen kantaldi bat ukanez eta ekainean Italiarakoitzuli baten mentura, ETORBURU abesbatzak hiruzpalau boz eder gehiago onhart lezazke, eta partikulazki **abetsoli** (tenor) bat eta abesperen (basse) bat. Herria

---

abetxukoar *(orobat **abetxukuar**) izond/iz* Abetxukon jaioa.

Horietatik seik baino ez zuten lortu finalerako txartela: Iñaki Viñaspre **abetxukoarrak**, Manex Agirre aramaioarrak eta Oihane Perea, Juan Mari Juaristi, Asier Otamendi eta Ruben Sanchez gasteiztarrek. Berria - Kultura

Horietarik sei dira finaleratu: Iñaki Vinaxpre **abetxukoarra**, Manex Agirre aramaioarra eta lau gasteiztar, Oihane Perea, Juan Mari Juaristi, Asier Otamendi eta Ruben Sanchez. Herria

Lasaitasunak kale egin zion **abetxukoarrari** lehen bertsoan, baina jakin zuen egoera konpontzen. Berria - Kultura

---

abeze *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **alfabeto** agertzen da, kasu batzuetarako) iz* alfabetoa; gai baten hastapenak.

Ikasi duzu **abezea** eta berehala ikasiko duzu irakurtzen, Maddalen. Joan Mari Irigoien

Laurogeitasei urte zituen eta **abezea** irakatsi zuen herrian, **abezea** irakastea hiri handietako kontua zen garaian hain zuzen. Koldo Biguri

Abezetik hasi beharko dugu orain, ala? Jose Morales

Errepikaldi haiek guztiz mekanikoak izaten ziren, ia pentsatu gabeak, eskolan zuela eternitate bat ikasitako **abezearen** hurrenkera zentzugabea buruan sartu nuen antzera. Alberto Ladron Arana

---

abezedario *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **alfabeto** agertzen da) iz* abezea. ik **alfabeto**.

Ramon Chaok *Le Monde Diplomatique* aldizkariko Ignacio Ramonetekin *batera Abécédaire partial et partiel de la mondialisation* Mundializazioaren **abezedario** partzial eta zatikakoa argitaratu berri du. Berria - Mundua

Lau horma zabalak zurezko fitxa-kutxatilaz estalirik zeuden **abezedarioaren** arabera, "G" hizkiarena hartu eta izenak pasatzen joan zen fitxa aurkitu arte. Iñaki Zabaleta

Lepoa panparroi gorantz begira duen nobleziako emakume adinean sartuaren indioilartasuna zaio bere morroiari mespretxuaren ikur, makurtu eta makurrarazleen arteko **abezedario** gestual bateko ikur. Harkaitz Cano

---

abezekiro *adlag* abezearen ordenaren arabera.

Aurreko urteetan, Eskolapioetan, abizenen arabera jarri gintuzten, **abezekiro**, nor bere ikasmahian, besteengandik solte eta aparte. Xabier Mendiguren Elizegi

Ongi sailkaturik zeuden, **abezekiro**, eta berehala aurkitu nituen, kuku-erlojuaren peko tiraderetan: concerto pour la main gauche. Harkaitz Cano

---

abiabide *iz* abiatzeko bidea.

Israeldarrak **abiabidean**. Elizen arteko biblia

Erabat menderaturik geneukan enbrioiaren garapenaren **abiabidea**. Juan Garzia

DONEGAN-ek (1996) eskainitako gogoetetan oinarritzen da honako **abiabide**-eskema hau. Lourdes Oñederra

---

abiaburu *(ETCn **699** agerraldi)* **1** *iz* zerbait hasten edo abiatzen den puntua.

Bazegoen erregeagana jotzerik, hura baitzen ibai guztien iturri eta itsaso, **abiaburu** eta helmuga. Iñaki Iñurrieta

Abiaburua eta jomuga. Edorta Jimenez

Natura dute **abiaburu** Juan Txillida Ameztoiren (Donostia, 1956) obrek, alanbrezko kutxa eta estrukturek. Berria - Kultura

Hiru oinarri horiek dira Ariasen obraren **abiaburu**. Berria - Kultura

18/98 sumarioan auzipetutakoen abokatuek diotenez, 75/98 eginbideak 18/98 sumarioaren **abiaburu** eta oinarri dira, eta informazio hori helaraztea eskatzen diote Zigor Salari. Berria - Euskal Herria

Eredu hori **abiaburu**, François Cuzin lagun harturik, kolibaziloaren mutanteak bakartu eta aztertzeari ekin genion. beti dago asmazio bat zientzia-saioen **abiaburuan**: mundu posible batena, edo mundu posible baten zati batena. Juan Garzia

Gizaki baten historiako gertakaririk garrantzitsuena ez dela, ez haren garapenaren **abiaburuan** den ernalkuntza, ez jaiotza, ez ezkontza. Juan Garzia

Ernaldu bako emakume obuluak izan ziren enbrioi horien **abiaburua**. Berria - Gaiak

Funtsean, klon bat da, hots, bilduma bat, hainbat motatako zelulena: gihar, nerbio, guruin eta abarretakoak; guztiak ere **abiaburuko** zelula batek berak -arrautza ernalduak- sortuak. Juan Garzia

Abiaburuko lau printzipio. Berria - Euskal Herria

Egitasmo berriari begira, hauxe da **abiaburuko** gogoeta: [...]. Koldo Zuazo

Ez da aukera "razionala" izaten, barneenean norbera zer den edo zer izan nahi duen, aukera edo postura **abiaburuko** hori. Joxe Azurmendi

Gaur egun gisa honetako testu baten itzulpenari heltzeak, beraz, **abiaburutik** bertatik aukera jakin batzuk egitea eskatzen du. Santiago Iruretagoiena

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estimatuko nuen postaletan jarri ohi den **abiaburu** arrunt hori, "hemen nago lagun talde batekin etorria", "nire lagun Michelle edo Helenarekin" hobeto, edo "enkante batera etorri naiz", beharbada. Ramon Saizarbitoria

Hainbeste asmo, amets, ekintza, zalaparta, atsegin eta atsekaberen **abiaburu** apaingarria. Piarres Xarriton

Ez al ditugu geure **abiaburu** ideologikoak zertxobait doitu behar? Askoren artean

Onar dezakegu Ameriketako iraultzak, 1776an, eta Frantziako iraultzak, 1789an, **abiaburu** guztiz ezberdinak hartu zituztela: hastapenean Frantziako iraultzaren buru agertu ziren legelari, abokat, apez eta apezpikuen artean bazen jende onik. Piarres Xarriton

Balizko **abiaburutzat** Ibarretxe Planaren hitzaurrea jo zuen. Berria - Euskal Herria

Latinezko *Quid leges, sine moribus* zuhur-hitz labur horretan aita Woronieckik aurkitzen zuen Estatuaren eta Nazioaren arteko eztabaidatik ateratzeko **abiabururik** ziurrena. horrelakoak erdipurdiko **abiaburu** dira, giza arimaren joan-etorri bihurriez gogoeta handien bidaian hasi nahi izanez gero. Piarres Xarriton

Bakoren festa erraldoirako **abiaburu** ezinbestekoa. Mirentxu Larrañaga

3 (hitz elkartuetan)

Atzo amaitu zen **abiaburu** plan honi proposamenak edo zuzenketak egiteko epea. Berria - Euskal Herria

Hizkuntza plangintzarako oinarriak zehazten dituen **Abiaburu** Agiria atzo goizeko bileran onartu zuen Gobernu Batzordeak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
abiaburu agiria (5); **abiaburu eta** (3); **du abiaburu** (3); **obraren abiaburu** (3)

---

abiada *(ETCn **2.632** agerraldi; orobat **abiera** g.er.)* **1** *iz* zerbaiten lastertasun indarra; zerbaiten higidura norabide bati buruz; abiadura.

Gasteizko taldeak aurten ACB Ligako beste taldeek ez duten **abiada** batean jokatzen du. Berria - Kirola

Txinpantzeen eta gizakien eboluzioaren **abiadaren** inguruko ikerketa zuzendu du. Berria - Gaiak

Erredakzioburuak eta atalburuak zuzendariordearen bulegotik ateratzen ikusteak arrasta paratu zion nire **abiadari**: bukatua zen goizeko erredakzio-bilera, ni gabe bukatu ere. Aingeru Epaltza

On Camillok salto batez bizikletara igo eta eskulekuari Girardengoren erara helduz, tximistaren **abiadaz** atera zen. Koldo Biguri

Ongi eta argi hitz egiten zuen, nolabaiteko geldi ezineko **abiadaz** eta zurruntasunez. Xabier Olarra

Haizearen **abiada** eta norabidea. Pello Zabala

Ur-lasterraren **abiadaz** eta emariz garatzen ditu bere ideiak, forma gehiegi zaindu gabe. Juan Martin Elexpuru

Autoaren **abiadak** atzerantz bota ninduen. Xabier Olarra

Erredakzioburuak eta atalburuak zuzendariordearen bulegotik ateratzen ikusteak arrasta paratu zion nire **abiadari**: bukatua zen goizeko erredakzio-bilera, ni gabe bukatu ere. Aingeru Epaltza

Trenaren **abiadak** edozer ahanztarazten zuen, nolanahi ere. Edorta Jimenez

Abiada bizkortu don Ottaviok, eta ziztu bizian abiatu zen limusina goi-ordoki harkaitzsu batean zehar. Jon Muñoz

Ederki moldatu zen Albert 5. erroko metro-ahoaren aurretik pasatu zirenean **abiada** moteltzeko; Piramideen geltokia zen hura. Jon Muñoz

Buckbeakek **abiada** mantsotu zuen eta gelditu egin ziren. Iñaki Mendiguren

Abiada aldatuz, biraketa bizkortuan, bat-batean bukatu zuen bere itzulipurdia. Jon Muñoz

Gero haren bagoiraino pasako ninduan, hurrengo geltokira hurbildu arte itxarongo nian eta estaziora sartu baino lehen, **abiada** gutxitzen hastean, zera, disparatu egingo nioan, eta trenaren **abiadaren** gutxitzea aprobetxatuz, geltokira iritsi baino lehen egingo nian ihes handik. hori: eguzkiak ekainaren azkenetik, sanjoanak pasa eta honuntza, hartu duela beherakako **abiada**: Ibilgailu batek 80 kilometro orduko abiadatik 120 kilometro orduko **abiadara** heltzeko behar duen denbora da "errekuperazioa". Mikel Hernandez Abaitua

Verstak eta verstak eginez tren espres baten **abiadan**, Hirurogeita bost milia orduko **abiadara** arte sakatu nion gasari, hirurogeita hamarrera arte, eta gero abiadura apalagotzen saiatu nintzen. Karlos Zabala

Erre-usaina... 1771ko maiatzean, arratsaldearen erdian, **abiada** izugarrian zabaltzen da sutea San Petersburgon barrena. Jon Muñoz

-Thainak landa osoa matxinatu du -esan zuen-, eta albistea lau haizetara zabaltzen ari da suaren **abiadan**. Agustin Otsoa

Argazki-oineko letrek ziztor amorratuak ematen dute, egundoko **abiadan** mugitzen dira, ezin ditut elkarrekin lotu. Anjel Lertxundi

Korapilo bat eta beste bat, izugarrizko **abiadan** zerabiltzan trikota egiteko orratzak, bere kasa lanean ziharduten inurrien antzo. Hasier Etxeberria

Ez nuen uste etxetik alde egiteko gai izango nintzenik, are gutxiago bakar-bakarrik eta orduko 951 kilometroko **abiadan**. Patxi Zubizarreta

1933an eraikia, 2.175 tona higiarazteko gai zen 36 korapiloko **abiadan**. Edorta Jimenez

ik beherago 7. gizakiak eta txinpantzeak antzeko **abiadan** eboluzionatu dute, eta gorilak zein orangutanak baino askoz geldoago. Berria - Gaiak

Arrotz eta guzi egiten baitzait emakumea, zakotea bizkarrean duela inorako **abieran**. Patziku Perurena

2 irud/hed

Subkontzientearen mailan psikearen abiadak duen geldotasun erlatiboaren ondorioa zen, adimenaren eta borondatearen **abiadarekin** konparatuta, behintzat. Iñaki Mendiguren

Gidari kalakari bat, mikrofonoa eskuan, denbora guztian isildu ere ez da egin (eta halako ingeles amerikarra, halako **abiadarekin**, nork ulertu ezer hari). Patxi Zubizarreta

Kode genetikoan behar genuke espeziearen iraupenerako funtsezko informazioa, baina zibilizazioaren **abiadak** atzean utzi du, nonbait, zentzumenen lengoaia, biologiaren ikasgaia. Xabier Mendiguren Elizegi

Kultuaren iraupena, jada batere zentzurik ez zuenean, subkontzientearen mailan psikearen **abiadak** duen geldotasun erlatiboaren ondorioa zen, adimenaren eta borondatearen **abiadarekin** konparatuta, behintzat. Iñaki Mendiguren

Hor aurkituko duzu, oso-osorik, lehenago tximista baten irudipenaz **abiada** hutsean sumatu duzun poema. Pako Aristi

3 (hitz elkartuetan)

Beroa eta haize **abiada**, noski, egunaren erditik aurrera, gehien pilatu ostean etorriko da. Pello Zabala

4 ***abiada batean*** abiada bizian.

Eserlekuen arteko pasabidetik lasterka igaro eta **abiada batean** igoko da eskaileretako batetik. Josu Zabaleta

Gero, enarak lan-eta-lan, **abiada batean** ari ziren, goizero habiatxoa konpontzen. Pello Zabala

Horren atzean dagoena Dine ei da, "gerran itzel sufritutako mutila, **abiada batean** ehun liberako erregai-upelak altxatzeko gai zena", Gregorio Fuentesen hitzetan. Edorta Jimenez

-Non dago Nini? -galdegin zion Eligiok Basiliori, paretik pasatzen ari baitzen bizikletan, **abiada batean**. Josu Zabaleta

5 ***abiada betean*** abiada bizian.

Orain **abiada betean** dihardu lanean. Edorta Jimenez

Aldapa **abiada betean** jaitsi, eta, tranpolinaren mutur-muturrean, gorantz egin zuen indar. Karlos Linazasoro

Ez zegoen, baina, zertan asaldatu; bitxia, bai, ikuskizuna: helize geldi baten gurutze zurruna, **abiada betean**. Joxe Austin Arrieta

6 ***abiada bizian*** oso laster.

Abiada bizian goaz, atzerapena laburtu nahi dute. Koldo Izagirre

Baina, gurdia **abiada bizian** zihoalarik, erori egin zen bertatik Antioko. Elizen arteko biblia

Ertzainari bizkarra erakutsi eta etxe aldera hartzen dut, arin eta zabuka, **abiada bizian** doan tren baten pasilloan kontrabidean joango banintz bezala. Anjel Lertxundi

Abiada bizian jaitsi zituzten eskailerak. Joxemari Iturralde

Itsaontziak zaldia zirudien uhinen gainean jauzika, **abiada bizian**, arranoa baino azkarrago. Juan Kruz Igerabide

Semaforoa berde jarri, eta aurrera jo zuen autoak **abiada bizian**. Aritz Gorrotxategi

Hesi gainetik jauzi egin, eta belardia zeharkatu zuen **abiada bizian**. Aritz Gorrotxategi

Behin logelan, Morse andreak **abiada bizian** eta urduritasunez erantzi zituen arropak, ohi zuen patxada zalantzatiaz arras bestela. Mirentxu Larrañaga

Aurreneko frogako sagua, bigarren bidaiatik itzultzean, zahartzen hasi zen **abiada bizian**, eta berehala hil zitzaien. Iban Zaldua

Miztura (Remix), Sagarroi (X-ixpiak), Skunk (Etor daitezela), Fermin Muguruza (In-komunikazioa), -gailu (Kontrolari begira) eta Bap!! (**Abiada bizian**). Berria - Kultura

7 abiada hartu

"Hau erosi behar diezu, bestea erosi behar diezu", jarraitzen du Petrusek, **abiada hartuta**, inori entzuten ez diola. Oskar Arana

Codvalok **abiada hartuta** hitz egiten du. Edorta Jimenez

Autobusak **abiada hartu** zuen auto korapiloa deseginez, baina espaloitik lasterka zetorren emakumeak keinua egin zion gidariari ibilgailua geldiarazteko. Javi Cillero

Igotzeko **abiada hartzerakoan**, ordea, danbateko sor bat sentitu nuen arroparen azpian, eta, aldi berean, sekulako ziztada izterraren goiko aldean, ezkerreko barrabiletik hurbil. Rafa Egiguren

Baina gurditzarreko meta lehenbiziko bizitzaren garaierara iristen zenean, beheko gizonak saski pila kulunkatu eta **abiada hartu** behar zuen, goiko lagunari botatzeko, zeina makurtua eta besoak aurrera jasotzeko prest baitzegoen. Karlos Zabala

Bestela... (Eskuineko eskua atzera bota du, **abiada hartzeko** moduan). Itziar Otegi

Abiada harturik, hantxe ekin zion izen osoari: al Djafat Mohamed ibn Musa al Khuarizmi. Jon Muñoz

Nik eragozpen bat saiatu nuen, baina Giuliak, **abiada hartu**, eta han hasi zen aretoaren ilunbean. Juan Garzia

Ziztuan joaten ginen, **abiada hartu** eta herrietan sartzen ginen sprint azkarrean, eta bizilagun guztiak izutu egiten ziren eta nor ginen galdetzen zuten. Pello Lizarralde

Gertakariek izugarrizko **abiada hartu** zuten uztaileko asteburu hartan. Pedro Alberdi

Aireratu, zeruan **abiada hartu**, lurrarekiko kontaktua galdu eta bere kasa doa ikuspen bila. Fernando Rey

Egun **abiada hartzen** dihardu, azken lau hilabeteotan ere gora eta gora jardun baita. Berria - Ekonomia

Sarobe arte eszenikoetarako gune gisa sortzearekin batera, Zinema Aretoa ere jaio zen bere baitan, eta urte hauetan beste hainbat egitasmok ere **abiada hartu** dute; Sarobe opera estudioak, besteak beste. Berria - Kultura

8 ***abiadan*** *adlag* denbora gutxian tarte handia ibiliz, lasterka bizian.

Abiadan sartu ziren Faedistarren patioan, euriak erdi jandako atetik zehar. Josu Zabaleta

Bentosa horren bidez, edalontziak mugitzen ditu, **abiadan**. Berria - Gaiak

Estutu egin nintzen eta **abiadan** atera bulegotik. Felipe Juaristi

Faxistak **abiadan** zetozen. Edorta Jimenez

Abian da plana, nahiz eta ez joan beharbada askori gustatuko litzaioken **abiadan**. Berria - Euskal Herria

Gaur dirua ("benetako" dirua, diru handi edo gizena) sare informatikoan, kabitu ezineko **abiadan**. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abiada askoz (3); **abiada azkartu** (3); **abiada batean** (6); **abiada betean** (3); **abiada bizian** (43); **abiada bizian eta** (3); **abiada bizitu** (5); **abiada bizitu zuen** (3); **abiada bizkortu** (3); **abiada bizkortzen** (4); **abiada eta** (9); **abiada guztian** (3); **abiada handia** (3); **abiada handian** (9); **abiada handiko** (3); **abiada hartu** (21); **abiada hartu du** (3); **abiada hartu eta** (3); **abiada hartuta** (6); **abiada hartzeko** (3); **abiada hartzen** (7); **abiada ikaragarrian** (3); **abiada izan** (3); **abiada izugarria** (4); **abiada mantsotu** (6); **abiada mantsotu zuen** (3); **abiada moteldu** (10); **abiada moteldu eta** (3); **abiada moteldu zuen** (5); **abiadan ibili** (3); **abiadan zihoan** (3); **autoak abiada** (3); **baten abiada** (3); **du abiada** (3); **ere abiada** (3); **eta abiada** (20); **eta abiadan** (3); **kilometro orduko abiada** (5); **kilometro orduko abiadan** (6); **kilometroko abiadan** (6); **korapiloko abiadan** (4); **orduko abiada** (5); **orduko abiadan** (8); **sekulako abiada** (3); **trena abiada** (3); **trenak abiada** (5); **zen abiada** (3); **zuen abiada** (8)

---

abiadore *iz* hegazkinlaria.

1925ean **abiadore** izatetik abioneta gaineko ekilibrista izatera pasatu zen. Unai Elorriaga

Abiadore haiei egin zaizkien elkarrizketetan bada beti agertzen den oroitzapena, gau osoa mendian barrena oinez, hotzak eta beldurrez eman ondoren muga zeharkatu eta Sarobe baserrian jaten zutena: ardo beltz ona, tortilla zoragarriak eta ardi gazta ketua. Pako Aristi

Maio, Matheus (1894-1931) **abiadore** portugesa zen. Unai Elorriaga

---

abiadura *(ETCn **32.060** agerraldi)* **1** *iz* ibiltzen den distantziaren eta horretan ematen den denboraren arteko zatidura.

Abiadura horretan ehun metro korritzen dira segundoko. Berria - Kirola

Gutxien espero nuenean, ordea, pixka bat apartatu **abiadura** hartzeko, eta sekulako kolpea eman zidan buruaz bekainean. Anjel Lertxundi

Pilotari **abiadura** emanez, aurkariari tantoa bukatzen utzi gabe, eta kantxan deseroso mugitzera behartuz. Berria - Kirola

Urrutira Foruzaingoaren auto nabarmen bat ikusi du eta balaztak zapalduz jaitsi du **abiadura**, kamioiz betetako ostatuaren parean. Hasier Etxeberria

Bitartean, Belaskok eta besteek, Fionnen istorioaren xehetasun guztien berri jakin ondoren, **abiadura** bizkortu zuten hura topatzeko asmoz. Joanes Urkixo

Badirudi gizakiek alferrik gastatzen dutela energia gorputzaren **abiadura** lastertzen eta moteltzen, pauso bat ematen hastean eta bukatzean. Irene Aldasoro

McLarenek **abiadura** galdu zuen bat-batean, eta inork ez zekien zergatia. Berria - Kirola

Abiadura moteltzen bazuten, nolako irainak, nolako hitz garratzak! kopurua amaigabea eta espazioaren sakonera infinitua dela eta Azaldua dut gorputzak zenbateko **abiaduran** hegatzen ziren eta nolako distantzia pentsagaitzak amen batean kurritzen zituzten. Karlos Zabala

Errepidea, putzu handi bat bailitzan, egokiagoa zegoen nabigaziorako Mobylettean orduko berrogei kilometroko **abiaduran** joateko baino. Unai Iturriaga

Bigarren Mundu Gerran, hegazkinaren kabina-gaina galdu zuen gerra-pilotu batek bi orduz jarraitu zuen hegazkina pilotatzen 400 k/h-ko **abiaduran** -34 ºC-ko tenperaturan. Irene Aldasoro

Uhinak bakarrik lerratzen dira han behean ziri-zara, ez dakit zenbat korapiloko **abiaduran**. Joxe Austin Arrieta

Abiadurako lasterketa hasi zen orduan, berlinako zaldiak zirikatu egin baitzituzten aurrea hartu zieten beste zaldien presentziak eta ibilerak. Karlos Zabala

Ur lasterraren **abiadurarengatik** inondik ere. Karlos Zabala

Jardun eta jardun, bota eta bota, dakarren **abiaduran** antzematen zaio, urtsuegi, bustiegi datorrela. Pello Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Begiak itxita dagoen bidaiariak ezin du esan hegazkina **abiadura** konstantean doan ala lurrean geldi dagoen. Irene Aldasoro

Hozteko ura gurpilaren erdialdera sartzen denean, palek, hura hartu, eta **abiadura** handian jirabiratzen dute, hornikuntza-hodira pasatu eta handik zilindrora joan aurretik. Irene Aldasoro

Gazela baten antzekoa da, defentsaren bizkarra hartzeko baloiak behar ditu, bere **abiadura** biziari etekina ateratzeko. Berria - Kirola

Trenak ez zuen oinezko batena baino **abiadura** bizkorragorik hartzen. Anjel Lertxundi

Autoak ezkerreko ildora pasatzen dira edukazioz niri tokia uzteko, bosgarrena sartzen dut, **abiadura** normalera iristen naiz eta erosi berri dudan konpaktua sartzen dut musika aparatuan. Mikel Hernandez Abaitua

Behin zure neurriko zuhaitza hartuta, arnasa sakon hartu behar duzu, eta orduan **abiadura** egokian joango zara beherantz. Julen Gabiria

Paseoko **abiadura** mantsoan zihoazen. Josu Landa

Abiadura Handiko Trenaren aurkako kamiseta gorria, lepoaldean moztua. Unai Iturriaga

Abiadura txikiko atzera-aurrerako motor sail bat eratzen dute muskuluek gorputzaren jarduera fisikoak eragiteko. Irene Aldasoro

Mikel Strogoff eta haren bidelagunak are **abiadura** biziagoaz oldartu ziren estepan aurrera. Karlos Zabala

Adi orain, simulakroek zer mugida azkarrean diharduten eta nolako **abiadura** emana zaien, auretan zehar igerian, zer denbora motzean egiten duten bide luzea. Xabier Amuriza

45 kilometro ordukoa izan zen batez besteko **abiadura**. Berria - Kirola

Izugarrizko **abiadura** ematen dio pilotari eta ezkertia da, gainera. Berria - Kirola

Mikelen bihotzean gehiegizko **abiadura** hartu zuten taupadek. Unai Iturriaga

20: 00: Olinpiar **abiadura**. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gidariek motoaren esku utzi nahi izan zuten **abiadura** murrizketa, eta elektronikak egiten du lan hori. Berria - Kirola

Abiadura neurgailuak, prest. Berria - Kirola

Bolante aurrean eserita, dena berriro probatzearren, **abiadura**-aldagailuarekin ari naizen bitartean. Joxe Austin Arrieta

Abiadura kaxa titaniozkoa da guztiz, iazko karbono-titanio nahasketa albo batera utzi ondoren. Berria - Kirola

Williams autoak oraindik atzeko pneumatikoak gehiegi xahutzen ditu, eta **abiadura** kaxarekin arazotxo batzuk ere badituzte. Berria - Kirola

Etengabe aldatzen den transmisioari esker, **abiadura** maila askotan indar guztia emateko gai da makina. Irene Aldasoro

Abiadura lege guztiak hautsiak zainetan. Unai Iturriaga

16.05: 'Keirin' **abiadura** proba motoaren atzetik (finala). Berria - Kirola

Zuzengune horretan hautsi dira azken urteetan txapelketako **abiadura** errekor gehienak. Berria - Kirola

Sakeetako batean Roddickek bere **abiadura** marka berdindu zuen pilotari orduko 244 kilometroko abiadura emanez. Berria - Kirola

Bihotzak legezko **abiadura**-koxka guztiak gainditu zituen, baina bere zainetako autobideetan ez zegoen isuna jartzeko ertzainik. Unai Iturriaga

Motoziklismo txapelketa **abiadura** lasterketa bat da. Berria - Kirola

Jarri behar al zaio mugarik **abiadura** txapelketa bati? Berria - Kirola

Munduko **Abiadura** Irristatze Txapelketan. Berria - Kirola

Ez du aurkaririk izan pista laburreko **abiadura** patinajean. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nahikoa da bere keinu metodikoak ikustea, neurtuak, **abiadura**-kaxa segundo zehatzean erabiltzen dakienaren keinuak dira. Jon Alonso

Gaur egungo mutilek barregura ematen dute bizikletan ibiltzen direnean: lokatzetakoak, txirrinak, balaztak, argi elektrikoak, **abiadura**-aldagailuak, denetik edukitzen dute! Koldo Biguri

Ni oraindik oholezko euskarriaren gainean dagoen autora sartu eta, bolante aurrean eserita, dena berriro probatzearren, **abiadura**-aldagailuarekin ari naizen bitartean. Joxe Austin Arrieta

Bihotzak legezko **abiadura**-koxka guztiak gainditu zituen, baina bere zainetako autobideetan ez zegoen isuna jartzeko ertzainik. Unai Iturriaga

Txandakako **abiadura**-aldakuntzen kateaketa, ez bi, baizik eta ziur hiru eta agian lau fase hartzen dituena, Mendebalde modernoan ontzigintza eta itsasketaren historian aurkitzen da. Iñaki Mendiguren

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bertatik haize-**abiadura** puntakoena jaso. Pello Zabala

Garapen edo errotazio-**abiadura** bat- berezkoa zaiona. Xabier Arregi

Horiek gehiegi ugal ez daitezen, erreakzio-**abiadura** kontrolatzeko alegia, kontrol-barrak ezartzen dira. Berria - Gaiak

Euskal Herrian oraindik ez agertu arren, intsektuak duen hedapen-**abiadura** azkarra kontutan izanik, urte gutxiren buruan gure artean aurki liteke. Berria - Gaiak

6 irud/hed

Urkia eta Lujanek ahal zuten guztietan partidaren **abiadura** aldatzeari ekin zioten. Berria - Kirola

Abiadura handian diruz okituko zen, herrira itzuliko gero, eta Maritxu dendari gaztearekin ezkondurik, aitatxiren etxalde abandonatuan laborantzan plantatuko. Itxaro Borda

Barruko jariakina ez da bere egoera normalera bihurtuko **abiadura** finko bat (edo atseden-egoera) lortu arte. Irene Aldasoro

Abiadura Handiko bizimodura itzuli beharraren zorigaitzak harrapatuko zintuela pentsatze hutsak nekea eragiten zizun. Hasier Etxeberria

Eta poztu egin zinen **Abiadura** Eztiak halako gauzei erreparatzeko ematen zizun aukera apartarekin. Hasier Etxeberria

7 ***abiadura aldagailu***

Gauza batzuetan parekotasunak ditu, motor eta **abiadura aldagailua** Ferrarirenak direlako. Berria - Kirola

Gaur egungo mutilek barregura ematen dute bizikletan ibiltzen direnean: lokatzetakoak, txirrinak, balaztak, argi elektrikoak, **abiadura-aldagailuak**, denetik edukitzen dute! Koldo Biguri

Herbert bere pailazokeriatik aldenarazterik ez: trafikozainaren plantak egiten hasi da, ni oraindik oholezko euskarriaren gainean dagoen autora sartu eta, bolante aurrean eserita, dena berriro probatzearren, **abiadura-aldagailuarekin** ari naizen bitartean. Joxe Austin Arrieta

8 ***abiadura angeluar***

Horrek esan nahi du satelite horien **abiadura angeluarra** puntu finko horrenaren berdina izaten dela. Berria - Gaiak

9 ***abiadura handiko tren***

Abiadura handiko trenaren obrak hastear daude! Bernardo Atxaga

Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan **abiadura handiko trena** (AHT) «elkarlanean» egiteko hitzarmena sinatu zuten atzo ofizialki. Berria - Harian

Adostasun zabal samarra lortu duen iritzia da **abiadura handiko trenean** oinarrituriko trenbide eredua ez dela Euskal Herriak behar duena. Berria - Euskal Herria

Abiadura Handiko Trenaren aurkako kamiseta gorria, lepoaldean moztua. Unai Iturriaga

Orotara, sei trenbide bilduko dira, **abiadura handiko trenaren** zabalera dutenak eta zabalera iberikoa dutenak. Berria - Harian

Abiadura handiko trenen %60 ekoizten ditu munduan [CAFek]. Berria - Euskal Herria

Abiadura handiko trenean Sevillarako bidean zihoala, berriarekin hitz egiteko tarte bat hartu zuen. Berria - Kirola

Istanbul eta Ankara arteko bidea egiten ari zen **abiadura handiko tren** bat bidetik atera eta gutxienez 139 pertsona hil ziren atzo arratsaldean. Berria - Mundua

Abiadura Handiko Tren bat erreserbatu dute. Berria - Kirola

Hegazkinarekin lehiatzeko **abiadura handiko trenak** erabiliko dira. Berria - Gaiak

10 ***abiadura handiko trenbide***

Era berean, Gasteiz eta Lille (Frantzia) lotuko dituen **abiadura handiko trenbideak** Irungo mugan izaten diren kamioi pilaketen arazoa konpontzeko balioko duela esan zuen Berria - Euskal Herria

Renfe Espainiako trenbide konpainia publikoak Madril-Zaragoza-Lleida **abiadura handiko trenbidearen** azpiegituraren zati bat erabiliko du urtarrilaren 19tik aurrera Iruñea eta Madril arteko bidea egiteko Berria - Euskal Herria

"Berria oso ona da», esan zuen Alvaro Amannek: "**Abiadura handiko trenbide** sare horrek Kantauri itsasoa Mediterraneoarekin lotuko du Berria - Euskal Herria

Hor erabaki da Tours/Bordele **abiadura handiko trenbide** berria 2008-an idekiko dutela. Herria

Ez du lan eskasik momentuan: Bilboko porturako sarrera hegoaldetik segurtatuko du; eta bereziki, euskal "Y" deitu **abiadura handiko trenbidearen** zati handi bat bere gain izanen du, hemendik eta 2011 artean. Herria

11 ***abiadura kaxa*** abiadura aldagailua.

Abiadura **kaxa** titaniozkoa da guztiz aurten.

12 ***abiadura lasterkari*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Abiadura-lasterkarien gorpuzkera du, ezin diozu eskatu Makelelek egiten zuena egitea. ETC-prentsa

Abiadura-lasterkariek dominatu duten proban Arrasatekoa aurrealdean ibili da etapa askotan, eta erregulartasun horri esker lortu du sailkapen orokorrean 18. postua. ETC-prentsa

Abiadura puntu bat falta zitzaion, **abiadura-lasterkari** onena izateko, eta agoniako azken hasperen bat, iraupen-lasterkari onena izateko. ETC-literatura, saiakera

Hortaz, **abiadura-lasterkariek** denbora marka hobeak egiten dituzte zonalde garaietan, non airearen gaineko erresistentzia txikiagoa den. ETC-entziklopedia

Mari Paz Mosanga Motanga (1982ko urriaren 16a) Ekuatore Gineako **abiadura-lasterkaria** da. ETC-entziklopedia

13 *abiadura maximo* *(corpusean ez dago; ETCn **157** agerraldi)*

50 cm-ko erradio maximorako, zein da protoiaren **abiadura maximoa** ? ETC-zientzia, zuzenbidea

Garraiatzaile bidezko garraioaren eta, askotan, kanalen bidezko garraioaren **abiadura maximoak** (Vmax) ezin daitezke gainditu substratu-kontzentrazioa edozein dela ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Balio horretatik aurrera, presio-igoera batek hedapen subsoniko bat eragiten du parte konbergentean eta konpresio subsoniko bat dibergentean; erregimena subsonikoa da, eta estugunean lortzen du **abiadura maximoa** . ETC-zientzia, zuzenbidea

Metabolismo anaerobiko laktikoa denbora tarte txiki (2-3 minutu) batean intentsitate handiko kiroletan erabiltzen da, esate baterako, helburua indar edo **abiadura maximoa** lortzea denean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izarrarteko kometa honen abiadura hiperbolikoa ere oso altua da, 32 km/s-koa gutxi gorabehera, horregatik, ziurtzat jotzen da haren izarrarteko jatorria, perturbazioen bidez azal daitekeen **abiadura maximoa** erraz gainditzen duelako. ETC-entziklopedia

Teknologiek har ditzaketen **abiadura maximoak** hurrengoak dira: datu deskargarako 4 Megabit segundoko Mbps, eta datu igoerarako 22 Mbps. ETC-entziklopedia

Horren ordainean, baina, har dezaketen **abiadura maximoa** 250 km/h-koa da. ETC-entziklopedia

Eremuaren ahultasun honen ondorioz kargarik gabeko motorrak **abiadura maximo** ziurra gaindi dezake. ETC-entziklopedia

Pasabidetik iragaten duen uraren abiadura arrainek igeri ahal duten **abiadura maximoaren** arabera eta gailuaren luzeraren arabera izan behar da. ETC-entziklopedia

Substratu molekulek entzima molekula guztiak hartu dituztenean erreakzioaren **abiadura maximoa** lortzen da, eta abiadura hori ez da gaindituko ezta substratu molekula gehiago gehituta ere. ETC-entziklopedia

Maglev tren batek lortutako **abiadura maximoa** 581 km/h izan da, gainontzeko garraio mota asko baino azkarragoa. ETC-entziklopedia

G00: Programatutako ibilbidea **abiadura maximo** posiblean egitea adierazten du, hau da, desplazamendu-abiadura handia erabiliz. ETC-entziklopedia

Hemen, **abiadura maximo** bat finkatua dagoenez, lasaiago iragaten da, eta, ibilbidean geldiguneak daudenez, harremanak sustatu eta elkarren artean ezagutzeko parada ematen die parte hartzaileei", azaldu du Uzkudunek. ETC-prentsa

Rossbyk **abiadura maximoa** aurkitu zuen 1936an Golkoko itsas korrontean, 1 m/s ingurukoa, eta hark ere susmoa zuen haizeak troposfera goialdean hartzen zuela **abiadura maximoa** (Jet korrontea). ETC-prentsa

Prestazioei dagokienez, 150 zaldiko indarrarekin 100 km/h bederatzi segundoan hartzen du eta **abiadura maximoa** 161 km/h da. ETC-prentsa

14 *abiadura muga*

Hego Euskal Herriko gidarien %36,7k ez dituzte **abiadura mugak** aintzat hartzen. Berria - Euskal Herria

"Kamioiaren gidariak ez ditu **abiadura mugak** errespetatu» adierazi zuen Isna hirialdeko poliziaburu Ahmad Njafik. Berria - Mundua

Abiadura muga nomás gainditzen duzunean, ezkutuan dauden poliziak sirena hots betean agertuko zaizkizu, eta hutsagatik jarriko dizuten isunak hilkutxa hotz baten antzera utziko zaitu. Patxi Zubizarreta

Bolantearen botoiek boxekin hitz egitekoa, **abiadura mugarena** ... zirkunferentzia arku perfektua marrazten dute bolantea alde batera eta bestera jira egitean, ardatz baten inguruan bueltaka ari baitira. Berria - Kirola

15 *abiadura murriztaile* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Batetik, har ditzala hartu beharreko neurriak orduko 30 eta 50 kilometroko mugatik behera mugatzeko abiadura: seinaleak, semaforoak, **abiadura murriztaileak** ... ETC-prentsa

Gidamenari laguntza batzuk (seinaleztapen edo balizamendu gehiegi eta, gehienbat, **abiadura-murriztaileak**) ez daude justifikatuta biribilgune batean, bide-korapilo mota oso segurua baita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jauzi txikia eragin dio, beraz, zeharbide mortuko **abiadura-murriztaileak** . ETC-literatura, saiakera

16 *abiadura neurgailu*

Abiadura neurgailuak , prest. Berria - Kirola

Motoak Mugelloko zirkuituan ariko dira, eta antolatzaileak **abiadura neurgailuei** azken ukituak eman dizkiete. Berria - Kirola

17 *abiadura-palanka* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Ibilgailu automotor baten **abiadura-palanka** abiadura-kaxari dagozkion erlazioak aktibatzeko edo desaktibatzeko erabiltzen den elementu bat da. ETC-entziklopedia

Biradera askok **abiadura-palanka** txiki bat izaten dute kontrolaren fintasuna doitzeko; hau da, zenbat bira behar diren zoomaren ibiltartea osatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mutilak bizkarra atze-atzean bermatuta gidatzen zuen, esku bakar bat bolantean, ezkerrekoa, fariasa hatz artean eta besoa luze-luze; eskuina **abiadura palankan** . ETC-literatura, saiakera

Nire eskua ez da behin ere **abiadura-palankatik** aldendu. ETC-literatura, saiakera

18 *abiadura supersoniko*

Abiadura supersonikoan hitz egiteko ohitura dute tokiotarrek, errietan ari direnean bereziki. Joxan Elosegi

19 *abiaduran* abiadan.

Polizia patruila bat pasa zen **abiaduran** eta argiak keinuka. Bernardo Atxaga

20 *biraketa abiadura* *(corpusean ez dago; ETCn **316** agerraldi)*

Disko batek karga elektrostatiko handia hartzen zuen eta **biraketa-abiadura** handian higitzen zen. ETC-literatura, saiakera

Arrazoi horrengatik, leku garaienean dagoen orbitak, zeruko izarrenak, **biraketa-abiadura** azkarrena du, eta mugitzen denean hots handia eta bizia du sortzen. ETC-literatura, saiakera

Eraginkortasunez gidatzeak, gainera, ez du abiadura moteltzearekin zerikusirik, "martxa luzeak **biraketa abiadura** baxuekin erabiltzea da gakoa". ETC-prentsa

Biraketa abiadura eta aireratze angelu ikaragarria dute hegazkin horiek. ETC-prentsa

TSI motorrarekin, **biraketa-abiadura** txikietan konpresore bolumetrikoa pizten da. ETC-prentsa

"Geosinkronikoak" esaten zaie, berriz, **biraketa-abiadura** orbitala lurraren **biraketa-abiadurarekin** sinkronizatuta dagoelako, biek bira osoa ematen baitute 24 orduro. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pikortatuaren kalitatea, oro har, erabilitako tresnaren ezaugarrien araberakoa da: eredua, bahearen sare-begiaren zuloa, eragindako presioa, **biraketa-abiadura** , joan-etorrien abiadura eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Halako zelulak lotze-puntuaren inguruan biraka hasten dira, aske mugitzen diren zelulen flageloetan hautemandako **biraketa-abiadura** berberaz, hain zuzen ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kasu batean zein bestean, 25 eta 150 rpm bitartekoa da **biraketa-abiadura** , sendagaia nolakoa den. ETC-zientzia, zuzenbidea

Labearen **biraketa-abiadura** geldoa da, eta bere ardatzak % 4 eta 8 bitarteko inklinazioa dauka. ETC-zientzia, zuzenbidea

Biraketa-abiadura mekanika kuantikoak onetsitako gutxienekoa balitz,2 orduan Pauli-ren harako "bikoiztasun" hura esplikatua legoke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortaz, alternadoreek azeleratzeko edo dezeleratzeko joera dute, eta, **biraketa-abiadura** aldatzen zaienez, sortutako uhin elektrikoaren maiztasuna ere aldatzen da, zuzenekoa baita bien arteko erlazioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondoren, **biraketa-abiadura** astiro handituz joango gara harik eta 45 b/min-ra iritsi arte. ETC-zientzia, zuzenbidea

21 *erreakzio abiadura*

Horiek gehiegi ugal ez daitezen, **erreakzio-abiadura** kontrolatzeko alegia, kontrol-barrak ezartzen dira. Berria - Gaiak

22 *gehieneko abiadura*

Kataluniako entrenamendu ofizialetan 347,4 kilometro orduko abiadura lortu zuen Loris Capirossik zirkuitu batean lortu den **gehieneko abiadura** . Berria - Kirola

Gehieneko abiadura 200 km/h-tik 220 km/h-ra artekoa izango da, eta batez besteko abiadura 150 km/h-tik 178 km/h-rakoa. Berria - Euskal Herria

23 *gurutzaldi-abiadura* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Ez da zorabiatzen **gurutzaldi-abiadura** saboteatzen saiatzen zaizkion oztopoen aurrean. ETC-literatura, saiakera

Gurutzaldi-abiadurarako bi turbina eta beste bi abiadura handiagorako (COGOG) zituzten, 29 korapiloko abiadurara heltzeko (54 km/h) eta lau helikoptero garraiatzeko gaitasuna ematen zutenak. ETC-entziklopedia

Aireontzi baten propultsio sistemak bi gauza lortu behar ditu. Lehenengo gauza, hegazkina **gurutzaldi-abiaduran** mugitzen denean, propultsio sistemaren bulkadak hegazkinaren erresistentzia (drug-a) orekatu behar du. ETC-entziklopedia

Aldera itzazu horrelako hegazkin batek, **gurutzaldi-abiaduran** doanean, erabiltzen duen potentzia eta Ingalaterrako XI. mendeko potentzia osoa (abere-jatorrikoa ez beste guztia). ETC-zientzia, zuzenbidea

Lopezen arabera, "aireratze zail baten ostean", Siemens Gamesak "**gurutzaldi abiadura**" iritsi du, eta bateratzearekin konpainia indartsu bihurtu da, eskala egokiarekin globalki lehiatu ahal izateko eolikoen merkatuarentzat aurreikusten den hazkunde handian. ETC-prentsa

24 *ihes-abiadura* *(corpusean ez dago; ETCn **81** agerraldi)*

Ihes-abiadura planeta, izar edo bestelako objektu galaktiko baten gainazaletik aldentzeko behar den abiadura da. ETC-entziklopedia

Venusen atmosfera ezabatzeko asteroide talkekin ezinezko bihurtzeko bezain handia den **ihes-abiadura** du. ETC-entziklopedia

Eta ideiak errotik astinduko zituen lege hau plazaratu zuen: galaxien distantziak eta **ihes-abiadurak** proportzionalak direla. ETC-literatura, saiakera

Horretarako, Lurraren azaleko grabitatea, tenperatura, **ihes abiadura**, dentsitatea, harri egitura... hartzen dira kontuan, eta exoplanetak horiekin erkatu. ETC-prentsa

17.25 Atomoek eta molekulek ihes egin diezaiokete Lurraren atmosferaren goreneko geruzari; **ihes-abiadura** baino ez dute izan behar, hori gertatu ahal izateko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zenbatets dezagun bi mutur horiei dagokien **ihes-abiadura**, psistema pingurune dela aintzat hartuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

25 *izotz gaineko abiadurako irristaketa* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Izotz gaineko abiadura-patinajea edo **izotz gaineko abiadurako irristaketa** neguko kirola da, bertan abiadurako izotz-pista obalean izotz-irristailu gainean hainbat distantziatako lasterketak egitean datzana. ETC-entziklopedia

26 *soinuaren abiadura*

Laurden hori berri handiekin hasi zen han-hemenka. 1976an **soinuaren abiadura** baina lastertasun handiagoa zuen "Concorde" izeneko hegazkinean hasi ziren ibiltzen bidaiariak Europa eta Ameriketaren artean, nahiz mendea bukatzear zela, eta istripu handi baten ondorioz, sistema hori zalantzan jarri eta berriz ere geldiarazia zuten. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abiadura bat** (6); **abiadura berean** (5); **abiadura bizian** (12); **abiadura bizkortu** (4); **abiadura da** (5); **abiadura emanez** (4); **abiadura ematen** (4); **abiadura ere** (6); **abiadura eta** (39); **abiadura ez** (6); **abiadura gehiago** (4); **abiadura gutxitu** (5); **abiadura handi** (4); **abiadura handia** (12); **abiadura handian** (16); **abiadura handiaren** (4); **abiadura handiko** (252); **abiadura handiko tren** (15); **abiadura handiko trena** (62); **abiadura handiko trenak** (16); **abiadura handiko trenarekin** (4); **abiadura handiko trenaren** (81); **abiadura handiko trenari** (8); **abiadura handiko trenaz** (7); **abiadura handiko trenean** (4); **abiadura handiko trenen** (5); **abiadura handikoa** (4); **abiadura handiz** (9); **abiadura hartu** (13); **abiadura hartu zuen** (5); **abiadura hartuko** (4); **abiadura hartzeko** (6); **abiadura hartzen** (6); **abiadura hori** (4); **abiadura horretan** (5); **abiadura kaxa** (4); **abiadura lasterketa** (4); **abiadura mantsotu** (7); **abiadura moteldu** (5); **abiadura motelduz** (5); **abiadura moteltzea** (4); **abiadura muga** (5); **abiadura patinajea** (29); **abiadura patinajea pista** (7); **abiadura patinajean** (12); **abiadura patinajeko** (7); **abiadura txapelketa** (4); **aht abiadura** (11); **aht abiadura handiko** (11); **argiaren abiadura** (7); **arteko abiadura** (7); **arteko abiadura handiko** (7); **autoaren abiadura** (4); **autoen abiadura** (7); **baina abiadura** (9); **baten abiadura** (4); **batez besteko abiadura** (4); **bere abiadura** (10); **beste abiadura** (4); **besteko abiadura** (4); **bi abiadura** (6); **bilbo abiadura** (4); **bilbo abiadura handiko** (4); **da abiadura** (15); **da abiadura handiko** (7); **den abiadura** (5); **ditu abiadura** (4); **dituen abiadura** (4); **dituen abiadura handiko** (4); **donostia abiadura** (5); **donostia abiadura handiko** (5); **du abiadura** (10); **du abiadura handiko** (6); **duten abiadura** (4); **duten abiadura handiko** (4); **ere abiadura** (5); **eta abiadura** (68); **eta abiadura handiko** (6); **eta gipuzkoan abiadura** (4); **gehiegizko abiadura** (6); **gehienezko abiadura** (6); **gipuzkoan abiadura** (4); **gipuzkoan abiadura handiko** (4); **haizearen abiadura** (7); **holako zerbaiten abiadura** (5); **kilometro orduko abiadura** (22); **kilometroko abiadura** (7); **ko abiadura** (4); **orduko abiadura** (23); **orduko abiadura hartu** (4); **pilotari abiadura** (4); **zen abiadura** (8); **zerbaiten abiadura** (7); **zuen abiadura** (6)
>
> **abiaduran egin** (6); **abiaduran eta** (5); **abiaduraren arabera** (4); **argiaren abiaduran** (4); **bi abiadurako** (8); **den abiaduran** (5); **h ko abiaduran** (4); **kilometro orduko abiaduran** (21); **kilometroko abiaduran** (10); **ko abiaduran** (4); **orduko abiaduran** (23)

---

abiagailu *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)* *iz* ibilgailu bat abiarazteko tresna.

Maciste motozikletan eseri da eta motorra pizteko oin-kolpea jo du; gero, bularraldea tenteturik, eskutokietako **abiagailuak** jiratu ditu. ETC-literatura, saiakera

Espetxerako itzuleran koronela kafetegi batean sartu zen freskagarri bila, Mandela autoan bakarrik utzita eta giltzak **abiagailuan**. ETC-literatura, saiakera

Baleazaleen pasabidearen 5. zenbakitik urrundu egin zen bultzaka, jabe zaharra ez zedin berehalakoan esna **abiagailuaren** lehen kolpearekin eta ez zekion ordainaraz hainbat astez diskreziorik eza. ETC-literatura, saiakera

-Ez da ezer -Wiesek oinarekin sakatu zuen **abiagailu** automatikoa. ETC-literatura, saiakera

Euren produktu-lerroak **abiagailu** automatikoak, etengailuak, disjuntoreak, erreleak eta bestelako tresneria elektrikoak zituen. ETC-entziklopedia

---

abiagune *iz* abiatzeko gunea. ik **abialeku**.

Gertakari lazgarri honen ostean, Italiarat sartzeko saio honen ustezko 6 antolatzaile atxilotu zituzten Albanian, hauen artean, bi polizia eta etorkinen **abiagune** izan zen Vlorako portuko zuzendariordea. Berria - Mundua

Hilaren 23an, azken jardunaldian, Enrique Urbizuren *La vida mancha* (2002) izango da **abiagune**. Berria - Kultura

Nobelak erailketa bat du **abiagune**. Berria - Kultura

Schopenhauerren **abiagunea** Kanten Idealismo Transzendentala da. Askoren artean

Horregatik nire egunkarira itzultzen naiz beti: hura da nire **abiagunea** eta nire helburua, Kittyk beti baitu pazientzia handia nirekin. Josu Zabaleta

Arazoa errazagoa da, jakina, ebakera baten **abiagunea** eta helpuntua ezagutuz gero, horren tarteko ebakera finkatu behar dugunean. Isabel Arrigain

Jende ezagun ugari bildu zen atzo Martin Ugalde Kultur Parkean, euskaltzalearen izena daraman foro berriaren **abiagunean**. Berria - Harian

---

abiakoan *adlag* abiatzean.

Baina esadazu: bitxiren bat emango zizun noski **abiakoan**, nire berriak eraman zenizkiolako, nolakoa zen? Patxi Ezkiaga

---

abialdi *iz* abiatzeko aldia.

Horixe ikasi nuen; probetxu horixe atera nion garbi-garbi nere **abialdi** horri: han ez zegoela bizirik, jakite hura ez zegoela biziarekin edo arnasarekin uztartzerik inolako moduz. Iñaki Segurola

Hau idazten ari naizenean pare bat aste joan dira nere azkeneko joanalditik edo, hobeki esanda, **abialditik**. Iñaki Segurola

---

abialeku *iz* abiatzeko lekua. ik **abiagune**.

Molekulen arteko eragin-truke guztien -eta, beraz, zelularen jarduera kimiko guztien- **abialeku** diren ezagutze-gune horiek bete beharreko baldintzen zorrotzean bilatu behar da horren azalpena. Juan Garzia

Iritsiko da eguna, korrikalariei **abialekuan** paratu orduko helmugara heltzea eskatuko zaiena. Joxerra Garzia

Ez **abialekua** ez xede-lekua ditu besteak gogoko. Joxerra Garzia

---

abiamen 1 *iz* hasiera, hastapena.

Apirilaren 23ak eman zuen **abiamena**: pilota desafioekin hego eta iparreko pilotarien artean luzean eta plaza laxoan, estreinatu zen ere, Kutxa fundazioari esker, muntatu den "Pilotaz" Anton Mendizabalen eskultura andana pilotari eskainia. Herria

2 *iz* prestakizuna.

Abiamen gainerako jardunak eta egintza guztiak "Judako Erregeen Kronika" liburuan daude idatziak. Abiam eta Jeroboamen artean ere izan zen borroka. Elizen arteko biblia

---

abiamodu *iz* abiatzeko modua.

Neure ahultasuna aitortu behar dut: **abiamodu** irregular hori ez zait desatsegin, nahiz eta gutxi lagundu ordezkatzen dudan elkarteari. Juan Garzia

---

abian 1 *(ETCn **20.663** agerraldi) adlag* ibiltzen hasten, zerbait egiten hasten; azkar, berehala. ik **abiatu**.

Balaki ama xaharrak egun non naizen, eta nora **abian**, erran lezake, maiz fatalismoak emaiten duen baretasunarekin: "Zer mentsa!". Piarres Aintziart

Zaldiko-maldikoan zelan zaldiak denak **abian** eta hala ere denak beti elkarren arteko distantzia berean, carroussel zoro-eroan, horrelaxe gabiltzala ematen dit niri. Edorta Jimenez

Semaforo gorrian stop eginda, ibilgailua ralentian, udaltzain-autoa ikusi dute eskumatik **abian**. Urtzi Urrutikoeetxea

Antxeta aldra batek, zalaparta gaitzetan, San Martin auzo aldera jo zuen; haratago **abian** itxuraz, Egia, Loiola eta Ametzagañaruntz. Txillardegi

Afruntua **abian** sakrifizio bilakatu nuen. Piarres Aintziart

Lehen harridura gainditu eta irria lasaitu ondoan, ohartzen naiz ura burrustaka doala ibiltokitik beheiti, burdin zirien beste aldera, zaintzalea dagoen tokira, pasabidera, gero eta ur gehiago urbideetara **abian**, eta hainbeste handituak dira urak non urbideak berak itotzen ari diren, gainditurik, garratoinak urbideetarik haizatuz. Filipe Bidart

Abian zihoazen bidean gorpuzkiak utziz, begi-besoak galduz, azken portura iritsitakoan den-dena izango baitzitzaien soberako. Felipe Juaristi

On Camillok ez zuen ezer ulertzen eta infernuko zarata sentitzen zuen belarri barruetan, eta trena berriro **abian** hasi zenean, konpartimendua lorez, botilaz, paketez eta fardelez beterik aurkitu zuen. Koldo Biguri

Eta bitartean Machadoren aurkako ezkerretarako iraultza, **abian**. Edorta Jimenez

Adiskidea gaizki omen zen: zinez behar ez zuen haragi meta batekin ordaintzera **abian**, pentsatu baino gastu gehiago obratzen ene errezibitzeko, jakinez ez nuela ardikia maite eta lo eskasez etorriko nintzaiola ez hain gose. Itxaro Borda

2 *abian eduki*

Une honetan, noski, ikerketa **abian** daukagu inolako irregulartasunik gertatu zen edo ez aztertzeko. Berria - Euskal Herria

Donostiako Udala auzotarren kexen jakitun da, eta guztiei erantzun nahian hainbat proiektu dauzka **abian**. Berria - Euskal Herria

3 *abian egon*

Lehenagotik **abian bazegoen** ere, atzo inauguratu zuten ofizialki eraikin erraldoia. Berria - Euskal Herria

- Turkia: Hegaztiak hiltzeko operazioa **abian dago** kutsaturiko eskualdeetan. Berria - Gaiak

Abian zeuden negoziaketetan bazegoela nolabaiteko itxaropena denak ontziratzeko agindua lortzeko. Jokin Urain

Gerra galdu eta modernizazio prozesua **abian dagoenez**, ohiko gogo tristura japoniarrera itzuli nahi du, mono no aware, edertasun une bakanak jasoz bidean. Ibon Uribarri

Desarautze-politikak, bere aldetik, komunikazioen iraultzarekin batera, finantza-globalizazioaren prozesua sendotu du - alegia, eguneko ordu guztietan ia **abian dagoen** finantza-sare global bat sortzea eragin du -, eta baita prozesu hark nahitaez behar zuen ordaina ere, hots, diru-egongaiztasuna. Koro Navarro

Eta bat-batean, beste mundurako **abian banengo** bezala, neure buruaz urrikaldu nintzen. Txillardegi

Usain hori garunetan sartu zitzaidan, eta berriro **abian nengoela** sentitu nuen berehala. Juan Martin Elexpuru

Baina **abian zegoen** dena, soinua jotzen jarraitzea beste aukerarik ez neukan. Bernardo Atxaga

Istant batean **abian zegoen** bikotea. Migel Angel Mintegi

4 *abian ezarri*

Hizkuntza politika **abian** ezartzeko Barne ministroaren zain egon behar dela dio Max Brissonek. Berria - Euskal Herria

Euskal departamenduari buruzko erreferendumaren gaia **abian** ezarriko dute, Kontseilu Nagusiari aipagaietan ezarri dezan eskatuz eta, bestela, Pirinio Atlantikoetan 50.000 izenpetze biltzera joanez. Berria - Euskal Herria

Prefeturak neguko planaren lehen atala **abian** ezarri du. Berria - Euskal Herria

5 *abian ipini*

1960ko Iraultza **abian ipini** zen sasoi hartan, sarri egin ohi zen honako iragarpen hau: Euskara eskolan eta telebistan sartzen denean, betiko salbatuta izango da. Koldo Zuazo

Lanbide berriak sortu ziren: itzultzaileak kopiatzaileen ordez, notariotzan aritu zirenak, burokratak etab., eta, beste gabe, literaturaren, artearen zein filosofiaren eraldatze-prozesua **abian ipini** zen. Askoren artean

Aita Jose Agustin Mendizabal gureak patxada betez **abian ipini** zuen Segura Irratiko martxa, ahalik eta ongien neraman 1978ko martxo akaberan ordezkoak hartu behar izan nizkionetik. Pello Zabala

ETAren agiriak bake prozesua **abian ipini** eta horren ondorioz presoak Euskal Herrira hurbilduko dituztela entzun badute ere, oraingoz ez dira askorik fio. Berria - Harian

6 *abian izan*

-Abian naiz. Juan Garzia

Lineaz bertzaldera ez zen deus aditzen, nire etxea izandakoari zegokion grabagailua **abian zelako** marka. Aingeru Epaltza

Aldi berria **abian da**, segida ez da eten, ez kalean, ez lantokietan, ez itzalpeko ostatu hauetan. Jokin Urain

Guk ere bat egin dezagun **abian den** iraultza eder horrekin! Luis Elberdin

Ezkerrean **abian dira** bi hautagai duela sei urte bezala: François Gougne mediku sozialista eta Louis Labadot komunista. Herria

Helegite hark **abian zen** prozesua geldiarazi zuen, eta, hargatik, gaur oraindik zedarritu gabe daude arara herri indigenari dagozkion lurrak. Berria - Gaiak

Baina, martxo dontsu honek ba ote du ezer zori dezentekorik, edo dena da zoritxar eta maldizio? Martxoa **abian denerako**, eta batzuetan dezente arinago, otea da lore-ekarle fidelena. Pello Zabala

Pagano herrietara **abian diren** apez gaztek, ba-eta hemen berean Misionest egin nahi direnek, martir eskualdun hori hartu behar lukete patroin eta bidaritzat. Xipri Arbelbide

Eta hala, laurogeiko hamarkada **abian zela**, asko espero ez nuen deia jaso nuen Xorroxin Irratiko lagunengandik. Pello Zabala

Azpikeria agerian geratu zenean, gerra **abian zen** eta hildakoak hamarna milaka kontatzen ziren. Txema Ramirez de la Piscina

7 *abian jarri*

Lainoa altxatzen zenean, berriz, kanpamentua jaso eta **abian jartzen** ziren. Jose Antonio Mujika

Hori esanik, zigorra astindu eta mandoak **abian jarri** zituen. Juan Kruz Igerabide

Trena **abian jarri** zen berriro. Anjel Lertxundi

Alkatea ere orduantxe sartu zen [...], eta eskuaz zalgurdiko sabaia joz, **abian jartzeko** agindu zuen. Felipe Juaristi

Cirok makina **abian jarri,** palanka jiratu eta lurrikara gertatu zen. Koldo Biguri

Motor zahar haietako bat **abian jartzeko** probak egiten. Juan Kruz Igerabide

Sekulako ehizaldia **jarri** zuten **abian** Alexandriako agintariek. Jon Muñoz

Demokrazia (Rousseauren zentzuan) geurean behingoz **abian jartzeak,** araudi berri bat eskatzen du. Markos Zapiain

Aldi hori, normalean keynesianismo deitzen zaiona, Estatu Batuetan hasi zen, 1933an **abian jarri** zen *New Deal* delakoarekin. Koro Navarro

Truke haietan oinarrituta **jarri** zen **abian** europar mundu-ekonomia, eta handik aterako ziren kapitalismoa eta ekonomiaren globalizazioa. Koro Navarro

Libertinoek naturatik jasotzen dituzte **abian jartzen** dituzten irizpideak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Proiektua **abian jartzeko**. Berria - Euskal Herria

Urratsez urrats Euskal Herri berri bat **abian jartzeko**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abian da (92); **abian da eta** (4); **abian dago** (6); **abian dagoen** (6); **abian daude** (5); **abian dela** (16); **abian den** (17); **abian dira** (26); **abian diren** (23); **abian direnak** (4); **abian ditu** (4); **abian du** (7); **abian duela** (4); **abian duen** (8); **abian ekimena** (4); **abian erredakzioa** (4); **abian eta** (9); **abian euskal** (4); **abian ezarri** (7); **abian ezarriko** (4); **abian ezartzea** (4); **abian ezartzeko** (5); **abian gaur** (4); **abian hainbat** (5); **abian ipini** (4); **abian izango** (9); **abian izango da** (5); **abian jar** (15); **abian jarri** (423); **abian jarri ahal** (9); **abian jarri aurretik** (8); **abian jarri behar** (14); **abian jarri beharra** (4); **abian jarri beharreko** (5); **abian jarri berri** (4); **abian jarri da** (9); **abian jarri den** (6); **abian jarri dira** (4); **abian jarri diren** (6); **abian jarri dituzte** (7); **abian jarri du** (28); **abian jarri duen** (8); **abian jarri dute** (13); **abian jarri duten** (5); **abian jarri eta** (22); **abian jarri nahi** (21); **abian jarri zen** (39); **abian jarri zenean** (7); **abian jarri zenetik** (9); **abian jarri ziren** (17); **abian jarri zituen** (6); **abian jarri zuen** (34); **abian jarri zuten** (14); **abian jarri zutenetik** (5); **abian jarria** (8); **abian jarriko** (67); **abian jarriko da** (4); **abian jarriko den** (7); **abian jarriko dituzten** (6); **abian jarriko du** (8); **abian jarriko duela** (9); **abian jarriko dute** (6); **abian jarrita** (4); **abian jarritako** (97); **abian jarriz** (7); **abian jartzea** (85); **abian jartzea da** (4); **abian jartzea erabaki** (5); **abian jartzea eskatu** (4); **abian jartzea eta** (5); **abian jartzeak** (6); **abian jartzeko** (180); **abian jartzeko agindu** (4); **abian jartzeko asmoa** (8); **abian jartzeko asmoz** (4); **abian jartzeko eskatu** (8); **abian jartzeko eta** (7); **abian jartzeko prest** (5); **abian jartzen** (51); **abian jartzen duen** (4); **abian jartzen ez** (4); **abian jartzera** (9); **abian zegoen** (5); **abian zela** (6); **abian zen** (15); **abian ziren** (5)

arte abian (4); **aurrera abian** (4); **bat abian** (86); **bat abian jarri** (17); **bat abian jarriko** (4); **bat abian jartzea** (17); **bat abian jartzeko** (26); **batean abian** (4); **batzuk abian** (6); **berehala abian** (6); **berri bat abian** (5); **berria abian** (8); **berriak abian** (6); **berriro abian** (19); **berriro abian jarri** (5); **berriro abian jartzeko** (5); **berriz abian** (26); **berriz abian jarri** (4); **berriz abian jarriko** (4); **berriz abian jartzeko** (8); **berriz ere abian** (4); **buruz abian** (8); **da abian** (59); **da abian jarri** (5); **dago abian** (11); **dagoeneko abian** (5); **dira abian** (18); **ditu abian** (13); **ditugu abian** (6); **dituzte abian** (18); **du abian** (89); **duen prozesua abian** (4); **dugu abian** (6); **dute abian** (54); **egitasmoa abian** (10); **egitasmoa abian jarri** (4); **egitasmoak abian** (5); **ekimena abian** (7); **ekimenak abian** (9); **ekimenak abian jartzeko** (4); **eraginkorrak abian** (5); **ere abian** (22); **ere abian jarri** (6); **erreforma abian** (4); **eta abian** (39); **eta abian jarri** (20); **eta abian jartzen** (5); **eztabaida abian** (4); **fasea abian** (4); **gobernuak abian** (4); **guztiak abian** (4); **hartu eta abian** (4); **hau abian** (4); **hori abian** (8); **hori abian jarri** (4); **horiek abian** (4); **ikerketa abian** (15); **ikerketa abian da** (4); **ikerketa abian jarri** (6); **ikerketa bat abian** (5); **jada abian** (6); **jaialdia abian** (4); **jarri da abian** (10); **jarri dira abian** (6); **jarri ditu abian** (6); **jarri dituzte abian** (9); **jarri du abian** (50); **jarri dute abian** (36); **jarri zen abian** (22); **jarri ziren abian** (5); **jarri zuen abian** (34); **jarri zuten abian** (40); **jarriko da abian** (28); **jarriko dira abian** (8); **jarriko dituzte abian** (4); **jarriko du abian** (27); **jarriko dute abian** (11); **jartzen da abian** (9); **jaurlaritzak abian** (4); **jaurlaritzak abian jarri** (4); **kanpaina abian** (16); **kanpaina abian da** (5); **kanpaina abian jarri** (8); **kanpaina bat abian** (4); **katalunian abian** (4); **kontra abian** (4); **lanak abian** (4); **legea abian** (7); **legebiltzarra berriz abian** (4); **mahaia abian** (6); **mahaia abian jartzea** (4); **makina abian** (4); **nahi du abian** (4); **negoziazioak abian** (6); **neurriak abian** (13); **neurriak abian jarri** (4); **ondoren abian** (4); **orain abian** (5); **plana abian** (23); **plana abian jarri** (9); **plana abian jarriko** (4); **plana abian jartzeko** (4); **politika abian** (8); **ppk abian** (4); **programa abian** (7); **programa abian jarri** (4); **proiektua abian** (16); **proiektua abian jarri** (5); **proiektua abian jartzeko** (4); **prozedura abian** (7); **prozesu bat abian** (18); **prozesua abian** (39); **prozesua abian jarri** (11); **prozesua abian jartzea** (4); **prozesua abian jartzeko** (9); **prozesurik abian** (4); **sailak abian** (4); **sistema abian** (4); **trena abian** (6); **trena abian jarri** (5); **udalak abian** (4); **urte abian** (7); **urte abian jarritako** (5); **urtean abian** (4); **zen abian** (27); **ziren abian** (6); **zuen abian** (36); **zuten abian** (41)

---

abiapen *iz* abiatzea.

"Jakin gela" xedeari eman zaio **abiapena**, euskal gobernuko Miren Azkarate kultur sailburuaren aintzinean, joan den astekotzat jadanik laburki aipatzen ginauzuen bezala. Herria

---

abiapundu ik **abiapuntu**.

---

abiapuntu *(ETCn **12.374** agerraldi; orobat **abiapundu** ETCn **7**)* **1** *iz* abiatzeko puntua.

Moisesek idatziz jaso zituen Jaunaren agindura egin zuten ibilaldiko **abiapuntu** eta helmugak. Elizen arteko biblia

Denak, baita Ttipiren hiltzailea aurkitzeko nire ahaleginak ere, bera izan behar **abiapuntu** edo jomuga. Aingeru Epaltza

Lehiaketa hau da Jojo Bordagarai eta Ramuntxo Carrere bikotearen **abiapundua**. Herria

Ez nuela Baionara itzultzeko gogorik, arrotz eta baztertua izatekotan, ezaren megalopoliak egokiagoak zitzaizkidala horretarako, Baiona enetako **abiapuntu** baino, bide baten terminus hitsa zela. Itxaro Borda

Esango nuke, oinarrizko errenta ekimena ezartzearen helburuak ez direla iraultzaileak, egungo errealitatea **abiapuntu** hartuz gero, neurri hori gauzatu ahal izatea dela iraultza. Iñaki Heras

Otsailaren 5eko eta 6eko kontzertuak nolazpeit Batekmila programaren **abiapundu** izanen dira. Herria

Bi helburu zituen **abiapuntu**: [...]. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Handik aitzinako ene buruhausteek eta larrialdiek sententzia hura izan baitzuten sorburu eta **abiapuntu**. Joan Mari Irigoien

Lau urtez Donazaharreko bide bazterreko altxorrak eta ixtorioak ezagututa, Madalena auzoko besten **abiapundua** den ibilaldiak ibiltariak eramango ditu Ahatsa (Baskazane), Aintzile eta Zaro herrien ezagutzerat. Herria

Literaturak errealitatea du **abiapuntu**, baiki, eta txosten baten itxura hotza har badezake ere. Anjel Lertxundi

Umoreak etengabe oroitarazten baitigu, baita zeruranzko hegaldietan ere, lurra dugula oinarri, lurra **abiapuntu**. Joan Mari Irigoien

Egungo nazioarteko ekonomia eskuliburuetan leku nagusia du abantaila konparatiboen teoria **abiapuntu** duen Samuelson eta Heckscher-Ohlin ekonomilarien teoriak. Iñaki Heras

Datu horrekin badugu **abiapuntu** bat aski serioa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Abiapuntu bat zehaztu nahi genuen. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gertakari garrantzitsuek askotan **abiapuntu** berriak ezartzen dituzte. Berria - Mundua

Eskaini diren teoria guztiek **abiapuntu** bera dute: detektatu beharreko gaiaren molekulek eta sudurreko eskualde txikiko usaimen-zelulek elkarrekin duten eragin-trukea. Irene Aldasoro

Agure bat neska gazte bati begira: horra hogeigarren mendeko literaturak Italian eman duen saio interesgarrienetako baten **abiapuntu** sotila. Anjel Lertxundi

Abiapuntu hutsal bat hartu, eta, mago onek bezala, hutsik zegoen kutxatik musuzapi sail amaigabea edo uso-banda oso bat ateratzen du bere kapelatik Raymond Queneauk. Xabier Olarra

Abiapuntu nahasi horrekin, esan dezakegu eskari poltsa abendutik hobetuz doala, zenbait jardueratan izan ezik. Berria - Ekonomia

Sokratesek bederen badaki ez dakiela, **abiapuntu** egokia ikasten hasteko inondik ere. Markos Zapiain

Nire sorlekuaren ikusezintasunaren aurka borrokatzea **abiapuntu** ona izan zitekeela pentsatu nuen; motor ideologiko, intelektual, etiko baten gisakoa, idazteari ekiteko. Aurten bildu eta pikoan eman ekitaldiak **abiapuntu** gaitza izanen dira ordurako. Bernardo Atxaga

Ez da **abiapuntu** txarra kontu-jaten aritzeko. Arantxa Iturbe

Teoria, XIX. mendeko filologian, hizkuntza indoeuropar guztien senidetza -seme-alabatasuna edo lehengusu izatea- eta euren **abiapuntu** komuna izango litzatekeen

hizkuntza arkaiko bat. Xabier Arregi

Gogoeta horiek adierazten dute Mendebalde modernoaren eta beste zibilizazio bizien arteko topaketen azterketa **abiapuntu** komenigarria izan litekeela. Iñaki Mendiguren

Oso ideia zentzuzkoa iruditu zitzaidan, nire bizitza berrantolatzeko **abiapuntu** sendoa. Bernardo Atxaga

Spinozak, kritiko eta jarraitzaile Descartesekin, horren ideien ontologia erradikalizatuz, Jainkoaren ideia razionaltasunaren **abiapuntu** absolutu bihurtu du hastapen-hastapenean, bazterrean utziz beraz zalantzaren eta metodoaren arazo guztiak, handik zuzenean unibertsoa Euklidesen moduan deduzitzeko. Askoren artean

Begi bistakoa iruditzen zitzaidan **abiapuntu** ezinbesteko hori ez zela landu soilik irudimenaz eta lumaz (esan ohi zen ukondoak mahaiari ondo itsasten jakin behar zela idazteko), baizik eta narrazio-testu asko bai askoren irakurketa arretatsutik baino ezin etor zitekeen literatur ezaupideaz ere bai. Juan Garzia

Hori da, hain zuzen, fonologiaren estudiorako **abiapuntu** berezkoa. Isabel Arrigain

Russellek Fregeri egiten dion kritika ulertzeko, kontuan hartu behar dugu **abiapuntu** epistemologiko desberdinak dituztela oinarrian. Askoren artean

Itxurazko **abiapuntu** guztien gainetik egon dadila ezkutuko jatorri bat. Xabier Arregi

Iraultzailea izan zen Keynes, hankaz gora jarri baitzituen ekonomia liberal klasikoaren zenbait oinarrizko **abiapuntu** eta uste. Iñaki Heras

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Halaber, lege-dramaren argumentua, non kristau-**abiapuntu** berri baten ondoren Moisesen eta Justinianoren arimak altxatu baitziren, Mendebaldeko agertoki batean ikusten da. Iñaki Mendiguren

Hala, azalpen-**abiapuntu** ere bilakatzen da betegintasuna. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abiapuntu bat** (18); **abiapuntu bat behar** (3); **abiapuntu bat izan** (3); **abiapuntu bera** (4); **abiapuntu bera dute** (3); **abiapuntu berri** (5); **abiapuntu berria** (4); **abiapuntu bezala** (6); **abiapuntu edo** (3); **abiapuntu egokia** (7); **abiapuntu eta** (18); **abiapuntu eta helmuga** (3); **abiapuntu gisa** (23); **abiapuntu harturik** (5); **abiapuntu hartuta** (18); **abiapuntu hori** (4); **abiapuntu horrek** (3); **abiapuntu horretatik** (4); **abiapuntu izan** (14); **abiapuntu izan behar** (3); **abiapuntu ona** (9); **abiapuntua baino** (7); **abiapuntua baino ez** (5); **abiapuntua besterik** (7); **abiapuntua besterik ez** (7); **abiapuntua da** (13); **abiapuntua dela** (3); **abiapuntua ere** (3); **abiapuntua eta** (10); **abiapuntua izan** (30); **abiapuntua izan behar** (3); **abiapuntua izan daiteke** (4); **abiapuntua izan daitekeela** (5); **abiapuntua izan zen** (5); **abiapuntua izango** (6); **abiapuntua izango da** (4); **abiapuntuan izango** (3); **abiapuntuaren aurkezpena** (3); **abiapuntura itzuli** (4); **abiapuntura itzultzen** (3); **abiapuntutzat har** (4); **abiapuntutzat hartu** (8); **abiapuntutzat harturik** (4); **abiapuntutzat hartuta** (17); **abiapuntutzat hartuz** (6); **abiapuntutzat hartzen** (4); **ardatz eta abiapuntu** (3); **baina abiapuntu** (4); **baina abiapuntua** (4); **baten abiapuntua** (16); **baten abiapuntua izan** (6); **baterako abiapuntua** (5); **berri baten abiapuntua** (5); **beste abiapuntu** (3); **beste abiapuntu bat** (3); **da abiapuntu** (4); **da abiapuntua** (13); **dela abiapuntutzat** (3); **ditu abiapuntu** (6); **ditut abiapuntu** (3); **dituzte abiapuntu** (4); **du abiapuntu** (23); **du abiapuntu eta** (3); **du abiapuntua** (5); **dugu abiapuntu** (4); **edo abiapuntua** (4); **egiteko abiapuntu** (3); **eta abiapuntu** (13); **eta abiapuntua** (3); **eta abiapuntura** (4); **ez da abiapuntu** (3); **gatazkaren abiapuntua** (4); **gure abiapuntua** (3); **guztiek abiapuntu** (3); **haren abiapuntua** (3); **hartu zuen abiapuntutzat** (3); **hori abiapuntu** (7); **hori abiapuntutzat** (4); **hori abiapuntutzat hartuta** (3); **horiek abiapuntu** (3); **horretarako abiapuntua** (3); **ikerketaren abiapuntua** (3); **izan zen abiapuntua** (4); **izan zuen abiapuntu** (3); **izan zuen abiapuntua** (4); **izan zuten abiapuntu** (4); **izango du abiapuntu** (3); **liburuaren abiapuntua** (3); **nire abiapuntua** (4); **oso abiapuntu** (3); **prozesuaren abiapuntua** (6); **zen abiapuntua** (5); **zuen abiapuntu** (6); **zuen abiapuntua** (5); **zuen abiapuntutzat** (3); **zuten abiapuntu** (4)

---

abiar *iz* Testamentu zaharraren garaiko herri bateko kidea.

Egiptoko mugan dagoen Xihor errekatik iparralderainoko lurraldea, Ekron mugarainokoa, kanaandarren lurraldetzat jotzen da; hor zuten beren agintea bost hiri filistearretako -Gaza, Axdod, Axkelon, Gat eta Ekron hirietako- buruzagiek; hegoaldean, berriz, **abiarrak** zeuden. Gauza bera gertatu zitzaien Gazarainoko hirietan bizi ziren **abiarrei** : Kretatik etorritakoek suntsitu egin zituzten eta beraien lurraldean jarri ziren bizitzen). Elizen arteko biblia

---

abiarazgailu *iz* makina bat abiarazteko gailua.

Abiarazgailu bidezko makina-erreminten sektoreak hartuko du erakusketaren azalerarik handiena; zehatz esateko, %38. Berria - Ekonomia

---

abiarazi, abiaraz(i), abiarazten du *ad* abiatzera behartu, martxan jarrarazi.

Pantxok, furgonetako jarlekutik mugitu gabe, CD a **abiarazi** du. Aingeru Epaltza

Goizaldeko hotzak izozturik genuen motorra **abiarazi** nahian genbiltzalarik. Edorta Jimenez

Suhiltzaileetariko batek keinu egin zion zubi gainean zegoen bere lankideari, eta honek garabia **abiarazi** zuen. Errege-erregina bidezkoen itzuleraren beldur baitziren, garaile berriek harresi zaharrak gotortzeko lanak **abiarazi** zituzten. Aingeru Epaltza

Bilboko Zabala auzoan gurasoek huts-hutsetik **abiarazi** dute eskola berria, erdararen gotorleku bihurtuta zeuden eskoletan D ereduari leku egiteko. Berria - Euskal Herria

Nik, Fulgor Sedanok, 54 urteko gizona, ezkongabea, lanbidez administratzailea, auziak **abiarazi** eta jarraitzeko gai, ahalez eta neure zuzenbidez, honako eskabide-azalpen hauek egiten ditut [...]. Juan Garzia

Ozeanoen azidotasuna zenbatekoa den jakiteko ikerketa **abiarazi** dute. Berria - Gaiak

Orain enpresak girotzeko kanpaina **abiarazi** dute. Berria - Harian

Bide berri bat **abiaraziko** du aurtengo ekitaldiak: urtero talde bat omenduko dute. Berria - Kultura

Presaka **abiarazi** zuen plan berri bat. Oskar Arana

Une hartan, fitsik ere ez zekien erabaki haren ondorioez, tutik ere ez **abiarazi** zuen haize-zirimolaz. Oskar Arana

Moisesek erantzun zion: -Zeu gurekin ez etortzekotan, ez gaitzazu hemendik **abiarazi** . Elizen arteko biblia

Goizean goiz jaiki eta erregeak Bet-Zakariaserako bidetik **abiarazi** zuen gudarostea azkar. Elizen arteko biblia

Edozein hots bitxi, edozein izen bitxi, berez errepikatzen has daiteke, **abiarazi** egiten nau. Xabier Olarra

Nahierara konbina zitezkeen, eta elkarrekin lotu, geneen jarduna **abiarazi** nahiz eragozteko, kasuan kasuko erregulazio-funtzioari eskema jakin bat zegokiola. Juan Garzia

Akabo bien artean superstizioaren kontra **abiarazi** behar zuten gurutzada eder hura. Josu Zabaleta

Bihar **abiaraziko** dute lur gaineko Lauko Euskadiko Txapelketa lehian ariko diren sei taldeek. Berria - Kirola

Hamarreko Torneoa jokatu ondoren, gaur **abiaraziko** dute Euskal Liga. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abiarazi behar** (6); **abiarazi du** (12); **abiarazi dute** (11); **abiarazi eta** (7); **abiarazi nahi** (4); **abiarazi nuen** (3); **abiarazi zituen** (4); **abiarazi zituzten** (4); **abiarazi zuen** (26); **abiarazi zuten** (13); **abiaraziko ditu** (3); **abiaraziko du** (8); **abiaraziko dute** (9); **abiarazitako kanpaina** (3); **abiaraztea da** (3); **abiarazteko prest** (3); **abiarazten ditu** (3); **abiarazten du** (6); **abiarazten duen** (5); **abiarazten zuen** (4); **bat abiarazi** (13); **bat abiarazi du** (4); **bat abiaraziko** (6); **bat abiaraztea** (3); **bat abiarazteko** (12); **bat abiarazten** (3); **batek abiarazi** (3); **gaur abiaraziko** (3); **gaur abiaraziko dute** (3); **horren abiarazteko** (3); **ikerketa abiarazi** (6); **ikerketa abiarazi dute** (4); **ikerketa bat abiarazi** (4); **kanpaina abiarazi** (7); **kanpaina abiarazi dute** (3); **kanpaina abiaraziko** (3); **kanpaina abiaraziko du** (3); **prozesua abiarazteko** (4)

---

abiarazle *iz/izond* abiarazten duena.

Ikerketa iturrien ustetan, bonba bukatu gabe zegoen, **abiarazlea** falta zitzaion. Berria - Mundua

Gudari zaharra hasle bat da, **abiarazle** bat. Markos Zapiain

Mixel ETXEBERRI, esperientzia hunen **abiarazleetarik** izan denaren inguruan, bizpahiru burraso edo burraso izanek kundatuko daukute nolakoa izan den bide puska hori, zenbat urrats gogor ala eder izan diren abiatu pundutik. Herria

---

abiasari *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* *iz* taxietan ordaindu behar den gutxieneko diru kopurua.

Gauzak horrela, **abiasaria** 3,5130 eurotan laga du eta lanegunetako kilometroa 1,1005 eurotan; eta jaiegun eta gauetakoa aldiz, orain arte bezala, 1,7553 eurotan geratu da. ETC-prentsa

Taxilariek **abiasaria** kendu zuten, bebarru guztietako ateak zabal-zabalik zeuden, auzokoek urez drainatu zuten beldurraren kaiola, kolorez ezabatu ultraeskuindarren pintaketa guztiak. ETC-prentsa

Arau orokor gisa, tarifek osagai hauek izanen dituzte: **abiasaria**; kilometroko prezioa edo geldirik egindako denboraren prezioa, **abiasariaren** ondoriozko frankiziarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

abiatu, abia(tu), abiatzen da/du *(ETCn **91.904** agerraldi)* **1** da *ad* abian jarri; hasi.

Halako batean, deliberatu eta han **abiatzen** ziren ilunpe jendeztatu hartara. Iñaki Iñurrieta

Pippinek begirada arina egin zion, Gandalfen atzetik **abiatzen** zen bitartean. Agustin Otsoa

Eguzkia pixka bat ezkutatu arte itxarotea erabaki zuen ardiak hartu eta mendirantz **abiatu** aurretik. Xabier Aranburu

Hori noiz etorriko zen inork ez zekien, ordea eta, berak lehenbailehen **abiatu** nahi zuen. Aingeru Epaltza

Vatikanora joan behar genuela eta han **abiatu** nintzen oinez, nire oinetako berriekin. Arantxa Iturbe

Denak erdietsi zituen eta, hirurogeita hamalau urteetan bere kontuz **abiatu** zen Erromara. Nahiz Avignon-en iragaitean hiltzeko zorian gertatu, 1567ko urrian Erromara heldu zen eta Penitentziaria Sainduko Kanonista izendatu zuten. Piarres Xarriton

Demokrazia **abiatu** zenean ere, gabezia dezente zegoen bazterretan. Pello Zabala

Abia zaitez berehala; zure beharretan naiz. Jon Muñoz

Bost euroko billetea utzi zuen barra gainean, eta diru xehea jaso gabe, aldakak binbili-bonbolo, kalerantz **abiatu** zen. Migel Angel Mintegi

Gertaera haiek guztiak hausnartzeko astirik gabe, taxi batean sartu eta unibertsitaterantz **abiatu** nintzen hitzaldiaren orrialdeak txukuntzen nituela bidean. Aritz Gorrotxategi

Alemaniarrek su eman zioten errefinategiari eta aita bizikletaz **abiatu** zen ahal zuen bezala. Joseba Urteaga

Abiatu aurretik, sofa gaineko motxila hartu zenuen, ni sukaldean nengoela aprobetxatuz, begiradak eta gauza hunkigarriak saihesteko. Lander Garro

Abiatu bezain laster gutarik batek ateratzen du linjaz aldatu behar dugula, joan aitzin. Marzel Etxehandi

Gero nabarmenki ordaindu zenuen kontua, agur esan zenien zure lagunei eta **abiatu** egin zinen, ez lehenago kanpoan nire zain egongo zinela berriz ere adierazteke. Eduardo Matauko

Goizean goiz **abiatzen** zen, mendi-igoeretarako bezala jantzita, baina soka, kranpoi eta pioletik gabe. Fernando Rey

Ikaslearen atzetik **abiatu** ziren, eta beren zalaparta hartan ahaztu egin zitzaien Cyrus txakurra, sokaz lotua bankuari, zaunkaka eta antsika, bere existentziaren berri eman nahian. Anton Garikano

Besterik gabe, bere aurrean **abiatu** nintzen nire ipurdi ikusgarria mirets zezan, eta logelara eraman nuen, non nire neska, ohe gainean sakabanatuta eta begiak itxita, esku barruaz klitorisa igurzten ari zen. Juan Martin Elexpuru

Lanetik irten, Eguren saxojolea hartu, saxoa eta soinua motoan ezarri, eta **abiatu** ziren ilunpetan. Pako Aristi

Neska zerbitzari-mahaira **abiatu** zen eta bidean, burua jiraturik, musu bat bota zion mutilari, airezkoa eta eskuz bidalia. Felipe Juaristi

Urmaela ikustera **abiatu** ziren gero. Jose Morales

Euskarri biologiko batetik **abiatzen** da -pertsona bakoitzarentzat desberdina-, eta material gehiago hartuz joaten gara bidean zehar. Luis Elberdin

Kafea kaxan ordaindu eta egunkaria tolestuta, nazioarteko hegaldien irteerarantz **abiatu** da. Lourdes Oñederra

Bankutik altxatu eta ertzain-autoa igaro zen norabidean **abiatu** zen oinez. Juan Luis Zabala

Hala bada, mirabeak eta dendak, gameluak eta mandoak bidaiarako prestatu, eta Xariar anaiarengana **abiatu** zen. Patxi Zubizarreta

Aldapa pikoan behera **abiatu** ginen, Rio Mundoren uretara jausi arte. Jon Maia

Eta munduko azken bazter isolatu eta ezezagun haietara **abiatu** ziren esploratzaileak XIX.ømendeko bigarren erdian. Karlos Zabala

Eta hantxe **abiatu** ginen biok, igogailuan gora, sekula baino gertuago; inoiz baino epelago sentitzen nuen bere arnasa eta, hain hurbiletik ikusita, bere aurpegia askozaz ederragoa iruditu zitzaidan. Jasone Osoro

-Ez! Bakeroketan! Bakeroketan! -erantzun dio Gabik tema-tema eginda, eta lasterka bizian **abiatu** da harea-txirristetara. Jokin Muñoz

Zaldi bila **abiatu** omen zen. Pablo Sastre

Hori adierazi eta ahotik jaulki eta gero, han joan da ziztuan eta **abiatu** da toki eta eserleku huts eta libre baterantz. Xabier Olarra

Total, IKEA n buelta batzuk eman ondoren, sofak ikustera **abiatu** ginela. Iban Zaldua

Lehenik eta behin, ahal den bezainbatean kontzepturik orokorrenen mailan geratu nahi izan delako, eta ez delako teorizatu nahi izan irudi mota jakin batetik **abiatuta**. Josu Zabaleta

Olivierren gabardina luze bat soinean zuela **abiatu** zen eskaileretan behera. Harkaitz Cano

Hildakoari ahotik zerion odolaren bide bera egiten hasi ziren nire begiak: haren aurpegitik **abiatu**, zoruko zirrikituetan barna egin eta nire oinetaraino. Anjel Lertxundi

Eguerdi aldera aita-amek itxaroten gaituzten lekura heldu gara; ume guztiak, baita ni ere, lasterka **abiatu** gara haiengana. Iban Zaldua

Artean sinesgogor, korrika ttikian sukaldera **abiatu**, eta neska, nire leihora begiratzeko keinurik egin gabe, liburuak biltzen eta gelako argia itzaltzen ikusi nuen. Patxi Zubizarreta

Udako iluntze baten hondarrean izan zen; etxerantz **abiatzekotan** ginen, eta motor baten zarata urrunekoa entzun genuen. Mirentxu Larrañaga

Ama izan aurretik, egunak gauean zuen muga, eta gaueko lehendabiziko uneak izaten ziren egokienak egunean zehar egindako zenbait galderaren erantzunen bila **abiatzeko**. Arantxa Iturbe

Arrazoimen hutsak arimaren adigaitik **abiatuta** arimaren substantziatasuna, batasuna eta hilezkortasuna inferitzeko egiten duen saialdiak inferentzia okerren sistema bat sortzen du. Ibon Uribarri

2 du *ad*

Lehenbiziko galdeketa ohikoa **abiatu zuten** nondik heldu zara Euskal Herritik Eta ez da sobera urrun Zer egin gogo duzu Lille-n Eta abar. Eneko Bidegain

Begiak alde guztietara **abiatu nituen**, zer ote, hain libertigarri, nigan edo nire inguruan. Aingeru Epaltza

Garziak eta Andoni Egaña bertsolariak, orain dela urte batzuk, Garatu egitasmoa **abiatu zuten**, ahozkotasuna lantzeko metodoa, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

Heziketa iraunkorra **abiatu genuen**, parrokietako eta ikastetxeetako lanean herdoilak joa egon zatekeen teologia eta frantziskotar anaidietako egunerokoan nagitua genezakeen ohikotasuna bizkortzeko asmoz. Pello Zabala

Orduan lubakiaren alde hartakoek bataila **abiatu zuten**. Edorta Jimenez

Joxanek gorantz **abiatu ditu** pausoak, mutilei entzundakoak Txerraren heriotzarekin batera buruan bueltaka. Paddy Rekalde

Gaur egun beste era bateko jazarpena **abiatu dute**, hor dago Iñaki de Juanari bi iritzi artikulu idazteagatik ezarri nahi dioten. Jokin Urain

Baina Espainiak bere Iraultza deitu ohi dena **abiatu zuenean**, erresuma zaharrean ez zen gelditzen Antzinako Erregimenik iraultzeko. Joxe Azurmendi

Arrantzaleen kofardiako diru-kutxa **abiatua** zuten berekin baina atean berean utzia beren ihesean. Herria

Ikerketa **abiatu zutenetik** gaur arte hiru lagun auzipetu dituzte kasuan. Berria - Gaiak

Polizia operazio handia **abiatu dute** Estatu Batuetako Georgia estatuko kostaldeko Sea Island uhartean eta inguruan. Berria - Mundua

3 ***abiatuan abiatu***

Jakes Casaubon-ek bazituen jada dotzena bat ezagutuak eta, **abiatuan abiatu**, joan gira hola 70/80 artio. Herria

Abiatuan abiatu, plazaraino joan nintzen baina autotik jautsi gabe etxerako bidea hartu nuen. Daniel Landart

Abiatuan abiatu, Burlata eta Uharte zeharkatzen ditut. Piarres Aintziart

4 *hutsetik abiatu*

Hutsetik abiatuta, jolas-nahirik gabe, nekez bururatuko litzaiguke hori kantatzea izotz koxkorraren moduko gai hotzari. Andoni Egaña

Baina **hutsetik abiatzen** diren guztiak ez dira helmugara iristen. Patxi Zubizarreta

Ez dira **hutsetik abiatu**: duela sei urte egindako deialdiaren ostean, Lurraren aldeko Solasean izeneko txostenean egoeraren azterketa eta helburuak finkatu zituzten. Berria - Euskal Herria

Guztira 14 dantzari prestatu dituzte, eta batzuk **hutsetik abiatu** direla dio. Berria - Kultura

Hutsetik abiaturiko berbaldirik nekez osatuko du inork. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eta **hutsetik abiatu** zela sinestea da zailena! Jose Morales

Niregandik etorriko zaik hori, ni ere **hutsetik abiatu** ninduan eta. Eskarne Mujika

Beraz, Filosofia oro edo arrazoimen **hutsetik abiatzen** den ezagutza edo printzipio enpirikoetatik abiatzen den arrazoimen-ezagutza da. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

abiatu ahal (15); **abiatu ahal izateko** (10); **abiatu aitzin** (28); **abiatu aurretik** (139); **abiatu baino** (34); **abiatu baino lehen** (28); **abiatu behar** (116); **abiatu behar da** (12); **abiatu behar dela** (10); **abiatu behar du** (8); **abiatu behar dugu** (15); **abiatu behar izan** (8); **abiatu beharko** (29); **abiatu beharra** (9); **abiatu beharrean** (8); **abiatu berri** (13); **abiatu berria** (11); **abiatu bezain** (10); **abiatu bezain laster** (8); **abiatu da** (276); **abiatu dela** (17); **abiatu den** (23); **abiatu denean** (8); **abiatu dira** (122); **abiatu diren** (9); **abiatu ditu** (23); **abiatu dituzte** (21); **abiatu du** (137); **abiatu duela** (9); **abiatu duen** (23); **abiatu dugu** (12); **abiatu dute** (109); **abiatu duten** (14); **abiatu edo** (8); **abiatu egin** (49); **abiatu egin ginen** (8); **abiatu egin zen** (14); **abiatu egin ziren** (13); **abiatu ere** (9); **abiatu eta** (263); **abiatu gara** (57); **abiatu ginen** (195); **abiatu ginenean** (13); **abiatu gira** (8); **abiatu izan** (10); **abiatu izana** (8); **abiatu nahi** (54); **abiatu nahi du** (10); **abiatu naiz** (72); **abiatu nintzen** (282); **abiatu ondoren** (10); **abiatu orduko** (32); **abiatu zara** (8); **abiatu zarete** (9); **abiatu zela** (30); **abiatu zelarik** (19); **abiatu zen** (1321); **abiatu zen atzo** (18); **abiatu zen bere** (17); **abiatu zen eta** (19); **abiatu zen manifestazioa** (10); **abiatu zen presaka** (8); **abiatu zenean** (46); **abiatu zenetik** (37); **abiatu zinen** (11); **abiatu zirela** (13); **abiatu ziren** (626); **abiatu ziren atzo** (8); **abiatu ziren biak** (11); **abiatu ziren eta** (13); **abiatu zirenean** (27); **abiatu zirenetik** (9); **abiatu zituen** (22); **abiatu zituzten** (17); **abiatu zuen** (212); **abiatu zuen atzo** (25); **abiatu zuten** (135); **abiatu zuten atzo** (15); **abiatu zutenetik** (17)

aldapan gora abiatu (8); **aldera abiatu** (106); **aldera abiatu ginen** (9); **aldera abiatu nintzen** (12); **aldera abiatu zen** (39); **aldera abiatu ziren** (20); **arin abiatu** (8); **arrapaladan abiatu** (10); **artean abiatu** (10); **aterantz abiatu** (30); **aterantz abiatu zen** (20); **atzetik abiatu** (67); **atzetik abiatu zen** (29); **atzetik abiatu ziren** (12); **atzo abiatu** (20); **atzo abiatu zen** (9); **aurrera abiatu** (20); **aurrera abiatu zen** (9); **aurretik abiatu** (10); **bakarrik abiatu** (14); **bake prozesua abiatu** (8); **barna abiatu** (13); **barrena abiatu** (44); **barrena abiatu zen** (15); **barrena abiatu ziren** (8); **bat abiatu** (103); **bat abiatu du** (22); **bat abiatu dute** (13); **bat abiatu zen** (9); **bat abiatu zuen** (18); **batean abiatu** (20); **baten bila abiatu** (22); **batera abiatu** (30); **batera abiatu zen** (11); **baterantz abiatu** (8); **batetik abiatu** (43); **batetik abiatu eta** (9); **behera abiatu** (56); **behera abiatu zen** (19); **berehala abiatu** (25); **berria abiatu** (9); **berriro abiatu** (17); **berriz abiatu** (36); **bidaia abiatu** (11); **bidean abiatu** (23); **bidetik abiatu** (18); **bila abiatu** (116); **bila abiatu da** (10); **bila abiatu nintzen** (10); **bila abiatu zen** (29); **bila abiatu ziren** (20); **bilera abiatu** (9); **bizian abiatu** (26); **bizian abiatu zen** (11); **bizian abiatu ziren** (8); **bizkor abiatu** (8); **buruz abiatu** (26); **da abiatu** (13); **egitasmoa abiatu** (11); **egitera abiatu** (13); **ekimena abiatu** (8); **elkarrekin abiatu** (15); **erasoaldia abiatu** (11); **ere abiatu** (22); **eskaileretan behera abiatu** (15); **eskaileretan gora abiatu** (10); **eta abiatu** (64); **eta abiatu egin** (20); **eta aterantz abiatu** (11); **eta etxerantz abiatu** (13); **eta han abiatu** (19); **eta oinez abiatu** (11); **etxera abiatu** (39); **etxera abiatu zen** (11); **etxerantz abiatu** (44); **etxerantz abiatu zen** (17); **euskal herrian abiatu** (9); **gabe abiatu** (29); **gabe abiatu zen** (8); **gero abiatu** (8); **gerra abiatu** (10); **goiti abiatu** (10); **goiz abiatu** (8); **goizean abiatu** (17); **gora abiatu** (49); **gora abiatu zen** (19); **gora abiatu ziren** (9); **gorantz abiatu** (16); **gose greba abiatu** (13); **greba abiatu** (23); **han abiatu** (22); **handik abiatu** (10); **hantxe abiatu** (8); **hara abiatu** (20); **harantz abiatu** (19); **haren atzetik abiatu** (9); **haren bila abiatu** (8); **hartzera abiatu** (8); **herrian abiatu** (9); **horregatik abiatu** (10); **horretatik abiatu** (12); **hortik abiatu** (16); **hutsetik abiatu** (11); **ihesi abiatu** (27); **ihesi abiatu zen** (10); **ihesi abiatu ziren** (10); **ikerketa abiatu** (42); **ikerketa abiatu du** (15); **ikerketa abiatu zuen** (11); **ikerketa bat abiatu** (13); **isilik abiatu** (8); **kanpaina abiatu** (90); **kanpaina abiatu du** (33); **kanpaina abiatu dute** (19); **kanpaina abiatu zuen** (13); **kanpaina bat abiatu** (22); **kanpora abiatu** (8); **komunera abiatu** (8); **kontra abiatu** (17); **kontra abiatu zen** (9); **korrika abiatu** (27); **korrika abiatu zen** (9); **laster abiatu** (9); **lasterka abiatu** (45); **lasterka abiatu zen** (19); **lehenago abiatu** (9); **logelara abiatu** (12); **manifestazioa abiatu** (9); **mugagabea abiatu** (10); **negoziazioak abiatu** (24); **nola abiatu** (16); **oinez abiatu** (42); **oinez abiatu zen** (9); **oinez abiatu ziren** (11); **okupazioa abiatu** (18); **ondoren abiatu** (13); **ondotik abiatu** (13); **operazioa abiatu** (14); **operazioa abiatu zuen** (8); **orduan abiatu** (10); **plazatik abiatu** (16); **prozesua abiatu** (33); **sukaldera abiatu** (15); **sukaldera abiatu da** (8); **trena abiatu** (15); **urte abiatu** (26); **urte abiatu zen** (9); **urtean abiatu** (13); **zehar abiatu** (11); **ziztu bizian abiatu** (22)

abiatua da (37); **abiatua dela** (8); **abiatua den** (15); **abiatua du** (16); **abiatua dute** (10); **abiatua nintzen** (10); **abiatua zen** (37); **abiatuak dira** (32); **abiatuak dituzte** (8); **abiatuak ziren** (25); **abiatuko da** (410); **abiatuko da eta** (13); **abiatuko dela** (21); **abiatuko den** (55); **abiatuko dira** (157); **abiatuko diren** (11); **abiatuko ditu** (20); **abiatuko dituzte** (19); **abiatuko du** (64); **abiatuko duela** (17); **abiatuko dute** (51); **abiatuko dute gaur** (8); **abiatuko dutela** (9); **abiatuko gara** (30); **abiatuko naiz** (17); **abiatuko zara** (8); **abiatuko zela** (11); **abiatuko zen** (19); **abiatuko ziren** (17); **abiatuta argitzen** (11); **abiatuta argitzen da** (8); **abiatuta egin** (9); **abiatuta soilik** (8); **abiatutako bidea** (8); **abiatutako bidea** (8); **abiatuz gero** (17); **abiatuz geroz** (10); **adigai soiletatik abiatuta** (8); **adigaietatik abiatuta** (13); **aurka abiatutako** (17); **aurka abiatutako** (17); **barru abiatuko** (8); **bat abiatua** (23); **bat abiatuko** (58); **bat abiatuko da** (19); **bat abiatuko du** (12); **batetik abiaturik** (10); **batetik abiatuta** (40); **batetik abiatuz** (15); **berriz abiatuko** (10); **bertatik abiatuta** (13); **bihar abiatuko da** (13); **bihar abiatuko da** (8); **bila abiatuko** (19); **bulebarretik abiatuko** (11); **bulebarretik abiatuko da** (9); **ere abiatuko** (8); **esperientziatik abiatuta** (9); **eta hortik abiatuta** (16); **gaur abiatuko** (26); **gaur abiatuko da** (15); **geltokitik abiatuko** (9); **geltokitik abiatuko da** (8); **gobernuak abiatutako** (8); **gobernuak abiatutako** (8); **goizean abiatuko** (14); **goizean abiatuko da** (9); **hemendik abiatuta** (11); **honetatik abiatuta** (12); **horietatik abiatuta** (8); **horretatik abiatuta** (45); **hortik abiaturik** (8); **hortik abiatuta** (53); **hortik abiatuz** (8); **hutsetik abiatuta** (11); **kanpaina abiatuko** (23); **kanpaina abiatuko du** (14); **laster abiatuko** (19); **manifestazioa abiatuko** (11); **manifestazioa abiatuko da** (10); **noiz abiatuko** (13); **ondoren abiatuko** (8); **plazatik abiatuko** (21); **plazatik abiatuko da** (12); **plazatik abiatuta** (18); **prozesua abiatuko** (8); **soiletatik abiatuta** (12); **soilik abiatuta** (9)

---

abiatzaile *izond/iz* abiatzen duena.

Eta banekien Lakatos izango zela, nahitaez, haren **abiatzailea**. Matías Múgica

---

abiatze *iz* abian jartzea; hastea.

Hersketa bukatu eta ezpainak irekitzean abia daiteke dardara, baina dardararen **abiatze** hori ez da nahitaez berehalakoa izaten. Lourdes Oñederra

Neure mendeku nahiaren eta neure odol-irakiduraren lehen **abiatze** eta oldartze hartan jakin nuen ezen ez ninduela nehork geldiaraziko. Joan Mari Irigoien

Aratsaldeko 7etan, pesten **abiatze** ofiziala, bertsuz eta kantuz. Herria

Ihizlarien sasoina ideki ere da aditu dugunaz arras **abiatze** pollita eginez. Herria

Joanden igandean, abendoaldiko lehen igandekari, iragan da Paueko Erakusgunean Zinodo Urratsaren bigarren gogoetaldiaren **abiatze** ospakizuna. Herria

Kultura baten zein bestearen alor bakoitzak bere kodea du, bere terminologia, bere **abiatze**-bidea, bere hizkera sakratuzkoa eta alor horretan dabilenari kostatu egiten zaio berea ez den esparru batean lasaitasun halako batez ibiltzea. Anjel Lertxundi

Abiatze puntua apirileko leihoa da, zeina irekita egongo den lege aldetik egin beharreko aldaketentzat. Berria - Mundua

Abiatze uneak izaten dira zail eta kontraesankorrenak. Berria - Harian

Abiatu aurretiko azken orduak hilobi ondoan eman omen zituen; 14: 00etan itsasontziratu behar, **abiatze**-ordua 15: 00etan baitzen, baina arrazoiren bat edo besterengatik itsasoratzea ia ordubetez atzeratu ei zen. Joxe Austin Arrieta

Seinale kontrajarri horiek elkarri gehitzen (edo kentzen) zaizkio, eta, azken emaitzak **abiatze**-atalasea gainditzen badu, beste bulkada bat transmititzen da; gainditzen ez badu, berriz, blokeaturik gelditzen da mezua. Irene Aldasoro

Jokalariak **abiatze** eszena ikusi zuen eta zer gertatzen zen galdetu zuen. Pello Lizarralde

Uztartze **abiatze** huni, agintzen diogu indartzea eta azkartzea. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abiatzea da (8); **abiatzea erabaki du** (3); **abiatzea erabaki zuen** (4); **abiatzea erabaki zuten** (9); **abiatzea eskatzen** (4); **abiatzea espero** (3); **abiatzea ez** (3); **abiatzea goizeko** (8); **abiatzea izan** (5); **abiatzea izanen da** (3); **abiatzea izango da** (3); **abiatzea litzateke** (3); **abiatzea nahi** (4); **abiatzea pentsatu** (3); **abiatzea proposatu zuen** (3); **abiatzea zen** (3); **baionatik abiatzea** (3); **bake prozesua abiatzea** (8); **batean abiatzea** (3); **baten abiatzea** (3); **berriro abiatzea** (3); **berriz abiatzea** (5); **bila abiatzea** (6); **da abiatzea** (5); **ekimenak abiatzea** (3); **elkarrizketa abiatzea** (7); **elkarrizketak abiatzea** (4); **eztabaidagunea abiatzea erabaki** (3); **gabe abiatzea** (3); **greba mugagabea abiatzea** (3); **ibilaldiaren abiatzea** (3); **ikerketa abiatzea** (3); **ikerketa independentea abiatzea** (3); **kanpaina abiatzea** (6); **lehenbailehen abiatzea** (3); **nazio eztabaidagunea abiatzea** (3); **neurriak abiatzea** (3); **plana abiatzea** (3); **prozesu bat abiatzea** (4)

abiatzearekin batera (4)

abiatzearen aldeko (3)

---

abiatzear *adlag* abitazeko zorian.

kanpoan, Super-Constellation baten firrinda, pistaren gainean, **abiatzear** . Joxe Austin Arrieta

Sergiorengandik ezagutzen ez zuenak beldurtzen zuen, baita erakartzen ere aldi berean, urruneko lur berri arriskuz josiek **abiatzear** den menturazalea beldurtzen eta erakartzen duten bezala. Joan Mari Irigoien

ETAren iragarpenaren aurretik zegoen antolatua batzar hori, Espainiako Gorteetan **abiatzear** den legealdi berriari buruzko idatzi bateratua plazaratzeko asmoz. Berria - Euskal Herria

Militarrek orduan argudiatzen zuten Egiptok Sinain indarrak bildu zituela eta Tirango itsasartea (Itsaso Gorrian) itxia zuela eta gerra **abiatzear** zela. Berria - Mundua

"guztion konpromisoa" eskatu zuen, hauteskunde prozesua **abiatzear** izanik, alderdi guztiek -Batasunak ere bai- beren eskubide zibil eta politikoak bermatuak izan ditzaten. Berria - Harian

Herrerako geltokian trena geratu zeneko, Veronica bezala ezaguna zen emakumeak ertz metaleztatuak zituen maleta hartu eta berriro **abiatzear** zegoen trenetik irten zen. Harkaitz Cano

Erdi lotan ikusi zuen pelikula osoa, baina bat-batean, **abiatzear** zegoen abioiaren motor hots erdian, Strasser jeneral alemaniarrak aireportura iristeko behar zituen segundoetan, bere egoerarekiko ulermen osoa eta erabaki baten ziurtasuna eskaintzen zizkion argi bat piztu zitzaion Asierri. Pako Aristi

Barne-barnetik hunkitua zen eta iruditzen zitzaion Joanes osaba bezainbat izateko lehiaketa **abiatzear** zihoakiola San Florentin horretan: ez zuen hitzordua faltatuko. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abiatzear den bake** (3); **abiatzear zegoen** (3); **prozesua abiatzear** (3)

---

abiazale *izond* abiatzeko zalea.

Jakinik da ere 2006 urtean Santa Graziko herria dela **abiazale** . Herria

---

abiazio *(ETCn **442** agerraldi; cf **hegazkintza** ETCn **143** agerraldi)* **1** *iz* hegazkinei eta eskuarki hegazkin bidezko hegaldi eta garraioari dagokien jarduera. ik **hegazkintza**.

Euzkadik behar bezalako **abiazioa** izan balu, ez zen, ez, Gernikakoa gertatuko! Joan Mari Irigoien

Jabea Poloniako judu bat zen, larruaren negozioan sartua zegoena, eta ez zekien tutik ere **abiazioaz** . Koro Navarro

Ezaguna denez, 1937ko apirilaren 27an, Gobernuak, atzerriko potentzia baten **abiazioaz** baliatuz, Macondo herri meatzaria birrindu zuen, mila hildako baino gehiago eraginez, gehienak haurrak, emakumeak eta zaharrak. Jon Alonso

Faxistek **abiazioari** utzi nahi zioten bonben eta izuaren eraginez arerioak zuloetatik ateraraztekolana; eta itxarotea baino ez zuten arratoiak bezala denak akabatzeko. Ramon Saizarbitoria

Hori zioten beti, eta esatea kontsolagarria gertatzen zitzaien: **abiazioaren** zigorra gogorra izan zen; eta handia, dudarik gabe, etsaiek zeruan izan zuten abantaila. Ramon Saizarbitoria

-Eskolako ume talde bat pasatu zen, **abiazioko** koronel batek gidatua. Fernando Rey

Abiazio Zibileko teknikariek eta Guardia Zibilak abian jarri duten ikerketak argituko ditu ezbeharraren arrazoi zehatzak. Berria - Euskal Herria

AEBetako **Abiazio** Federalaren Administrazioaren arabera, hegazkin hori Dodson Aviation konpainiarena da, Kansas estatuan erregistratua. Berria - Mundua

Programaren asmoa ez zen Amerikako Estatu Batuetako enpresek **abiazio** komertzialean zuten monopolioa haustea. Berria - Ekonomia

Luis Posada eta Orlando Bosch disidente kubatarrek 1976an egin zuten eraso larriena, Kubako **abiazio** enpresaren aurka. Berria - Mundua

2 ***abiazio istripu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Joan den maiatzean beste **abiazio istripu** bat gertatu zen Nepalen. ETC-prentsa

Abiazio-istripua edo aire-istripua edozein aireontzirekin gertatzen den ustekabeko gertakaria da, lehorrean edo hegaldian. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abiazio zibileko** (3)

---

abiera ik **abiada**.

---

abil **1** *izond* trebea.

Gizon ixil eta **abil** baten orroitzapena uzten dauku. Herria

Gogo beltz, esku **abil** , pozoia prest; egokiera ere aldeko; hartarako aproposa ordua. Juan Garzia

Falta zuen Lafittek bertzorduko ñaka hura, eta Martiarenak betiko joko **abil** hura. Herria

Jokaldi juridiko-politiko **abil** bat zen, liberal konstituziozaleei bezain egoki kontserbatzaileei zetorkiena. Joxe Azurmendi

Osagarriz ahul izanagatik, gazte fin eta **abila** duk. Itxaro Borda

Garbi dago notario-idazkari alkimiazale hura alproja biribila zela, baina ez berak uste bezain **abila** , harrapatu egin baitzuten eskuak notario-paperetan zituela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aski **abil** zen, gainera, nire tratukidea; bazuen sekretu bat beira koloretuentzat, eta guztiz itxura ederreko xafla nabarrak ontzen zekien. Juan Garzia

Ene inguruan zenbait izugarri **abilak** dira: Izen handiko jokalaria, Milango Interren aritutakoa, punta-erdian ongi moldatzen dena, jaurtiketa gogorrekoa, **abil** samarra. Berria - Kirola

2 (adizlagun gisa)

Gurpilez bahabil habil **abil** . Iñaki Arranz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abila baitzen** (3); **abila da** (14); **abila dela** (4); **abila izan** (9); **abila zen** (13); **aski abila** (3); **azkarra eta abila** (3); **bezain abila** (8); **ere abila** (3); **gizon abila** (5); **oso abila** (11)
> **abilak dira** (5); **abilak ziren** (3); **biziki abilak** (3); **izugarri abilak** (3)

---

abildade *(ETCn **401** agerraldi; orobat **abilidade** ETCn **265** agerraldi; cf **abilezia** ETCn **2.487** agerraldi) iz* trebetasuna.

Ez dagoen tokitik edozer gauza ateratzeko **abildadea** dute batzuek. Iñaki Segurola

Idiota jakintsua, ikasia edo abila deitzen zaion giza jeneroa, beraz, idiota da, baina zenbait arlo zehatzetan, hala nola matematikan, musikan edo datuak gogoan atxikitzen, ohi ez bezalako dohain eta ezin sinetsizko **abildadearen** jabe da. Iñaki Segurola

Ikasle guztiok amorrarazterainoko kontuak botatzen zizkigun aurpegira, **abildade** handia zuen horretarako. Anjel Lertxundi

---

abildu, abil(du), abiltzen da/du *ad* abil bihurtu. ik **trebatu**.

Erabili ezaz moteldurik sentitu zuten une jakin batean berea izandako hizkuntza, gurasoekin totelka eta zezelka egin behar zutela umetako hizkera, eta ordutik -gaztaro goiztiarreko egun ahaztu edo gogoangarri batetik- egin ahala guztian saiatu ziren mintzaira herdoildua trebatzen, edertzen, **abiltzen**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

abilezia *(ETCn **2.487** agerraldi; orobat **abilezi** g.er.)* **1** *iz* trebetasuna.

Nola lortu duzu **abilezia** hori? Felipe Juaristi

Ministroen gogoko gizonek **abilezia** bera erakutsi behar zuten arkabuzarekin nahiz Bibliarekin. Aingeru Epaltza

Bizitzak berez ekarri ohi duen kasualitate bati zor zitzaion aurkikuntza, nire jakituriari, **abileziari** edo ahaleginari baino gehiago. Hasier Etxeberria

Nire **abileziaren** fama uste baino lehenago hedatu zen. Aingeru Epaltza

Sortzaileekiko kontsiderazioa, berriz, ez da haien dohain literarioen miresmenak eragina, dohain horiek merkatuaren zerbitzura jartzeko **abileziak** irabazia baino. Anjel Lertxundi

Nahi duenean badu ni mixerable sentiarazteko **abilezia**. Patxi Iturritegi

Polifema ziklopea gizon arrunta eta txikia izan balitz, adibidez, zertarako balioko zuen Ulisesen **abileziak**. Itxaro Borda

Trinkotasuna, emozioa eta errimoa zaintzeko **abilezia** eta gustua. Ana Urkiza

Airera bota du zenbait aldiz, **abileziaz**, harri baten gainera eror dadin. Itziar Otegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gonbidatu, behartzerik komeni ez denean: gidatu, agintzerik komeni ez denean; horra **abilezia** gorena. Iñaki Iñurrieta

Gauza jakina da gure organismo lurtar astun honek **abilezia** sinestezinak beregana ditzakeela ariketa bidez, musika tresnak jotzeko, akrobaziak egiteko eta era horretako hainbat ikuskizun prestatzeko. Imanol Unzurrunzaga

Ubel eta triste jarri zen, eta ilean artesia egiten hasi zen **abilezia** txalogarriz. Karlos Linazasoro

-Nire botere eta **abilezia** osoa erabili beharko dut -esan zuen-. Agustin Otsoa

Kelleyk ez zuen beruna -edo zilarbizia, berdin dio- urre bilakatzeko **abilezia** berezirik erakutsi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ehiztari amorratua, basurdeak harrapatzen berebiziko **abilezia** zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

3

Ikaslearen **abilezia** kolpea aurreikusi eta makurtzean datza, eta zuzendariak oreka galtzen du orduan, besteen barre-algara erdi itoen artean.· Bere zelatari **abilezia** osoa erabili du, zurrunga itxurak egin barrea disimulatzeko. Itziar Otegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abilezia berezia** (4); **abilezia du** (3); **abilezia erakusten** (3); **abilezia eta** (10); **abilezia handia** (3); **abilezia handiz** (5); **abilezia hori** (4); **abilezia hura** (3); **abileziari esker** (3); **bere abilezia** (4); **duen abilezia** (10); **eta abilezia** (10); **eta abileziaz** (4); **zuen abilezia** (3)

---

abilidade *(ETCn **265** agerraldi; orobat **abilitate** g.er.)* **1** *iz* trebetasuna. ik **abilezia**.

Horixe da adinekoen **abilidadea**, gauzak hirutan esatea, edo lautan. Unai Elorriaga

Itsasoa narrats jartzen baldin bada, traineru bakoitzak bere **abilidadeak** erakutsi beharko ditu, indarraz gain. Berria - Kirola

Iban Zalduak egunerokotasunetik abiatuta irakurlea hunkitzeko duen **abilidade** aparta. Berria - Kultura

Matiasek pentsatu zuen munduko mediku gehienek, **abilidade** handiak izan arren, ez dutela bizitza osoan euli itsurik ikusiko, bera, Matias, une hartan ikusten ari zen moduan. Unai Elorriaga

Hitzak apurtzeko **abilidadea** zuen, eta ez nuen denbora askorik behar izan literaturarekin loturarik ez zuela konturatzeko. Koro Navarro

Badu bere burua besteei baldar erakusteko **abilidadea**, aldi berean komunikatu nahi duena ikusgarri eta dotore eginez. Xabier Etxabe

Berak ez zuela kontu haiek kontatzeko **abilidaderik** esan zuen baserritarrak. Koro Navarro

Zerraren hortz bat alde batera okertu zion eta bestea beste aldera, erabat estropeatu ziolakoan, baina entrama galanta eman zion eta, indarrez eta **abilidadez**, trontza asmarazi horrela. Pello Zabala

---

abilitate ik **abilidade**.

---

abilki *adlag* abileziaz.

Taberna batean lagun-talde batengana hurbildu eta, **abilki**, lagunartearen ingurumarian geratzeko kemena zeukan, harik eta bakarren batek bera ere errondan sartzen zuen arte. Irene Aldasoro

Badira ere salatari maltzurrak kontrako lana egiten dutenak, berri faltsuak **abilki** emanez. Michel Oronoz

Jakinen nuela, aski **abilki** mintzatuz geroz, delako ostatua egiazki saltzeko zen ala ez. Janbattitt Dirassar

Gainera Jontxuk bazuen halako ahalmen bat gainerakoak bere usteaz konbentzitzeko, greba-deialdietako asanbladetan-eta **abilki** erabiltzen zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Segur aski ere, astearen hiru egun horien izenak ilargiaren zikloaren berri emateko erabiltzen ziren jatorriz, Astarloa bera aski goiz eta aski **abilki** bere garaian konturatu zen gisa. Pello Salaburu

Erran gabe doa Estatuak bereziki ez zuela holako propaganda begi onez ikusten eta, berehala, gordeka eta **abilki**, bere mutilak igorri zituen bazterren zaintzeko. Michel Oronoz

Abilki trabatutako lau zati oso ezberdinez osatuta, nobelak mantso egiten du aurrera hasiera batean, baina berehala hartzen du abiada. Berria - Kultura

Gero, **abilkiago** aritzearren, Clausewitzen gerla taktikak aztertu genituen. Itxaro Borda

Houellebecqek gai eta kezka ugari darabiltza bere liburuetan, airoski eta **abilki**, baina bat eta bakarra da nagusia, besteak itzalean uzten dituena: sexua. Berria - Kultura

Lehenik Christophe ukan genuen solasgai, eta gero, ahal bezain **abilki** xehetasun zenbait galdetu ondoan eta jakinik "libre" zela, bizpahiru hitz goxo erran dizkiot. Daniel Landart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abilki ari** (5); **abilki jokatu** (3); **aski abilki** (4); **biziki abilki** (6)

---

abiltasun *(ETCn **11** agerraldi)* **1** *iz* trebetasuna. ik **abilezia**.

Biziki partida pollita egin daukute 4 pilotariek bainan Beñatek erakutsi du zalutasuna eta **abiltasuna**. Herria

Kristalak, inkaminariaren **abiltasun** ustekabekoarekin xurgatu eta itzuliko dizu figura. Joseba Sarrionandia

Hiru pilota, makila pare bat, okasionezko errota bakarreko txirrindola eta karrika ezkinetan ikasi **abiltasunak** eskuan, baina euro bihirik gabe sakelan, hara nola abiatu ziren

2000 garren urtean, hain segur urte horrek gure gogoetan zeukan magiak bultzaturik. Herria

---

abintestato *(corpusean ez dago; ETCn **173** agerraldi) iz* oinordetzetan, borondatezko ordenaziorik ez dagoenean, legeak berak ordenatzen duena.

Orobat, II. urteko nivôse hilaren 17ko legea, **abintestato** edo testamenturik gabeko oinordetzan oinordeko hurrenkera berbera jarri zuena Frantzia osorako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste biderik izan ezean, auzitegiak probidentzia bitartez aginduko du hildakoaren ahaide, lagun edo auzokideengana jotzea, hildakoa **abintestato** hil den eta oinordetza legitimorako eskubidearekin ahaiderik dagoen aztertzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erregistroaren ondoreetarako, jarauntsi bidezko oinordetzaren titulu gisa har daitezke testamentua, oinordetza-ituna, **abintestato** jaraunsleak izendatzeko adierazpen judiziala edota Prozedura Zibilaren Legeko 979. artikuluak aipatzen duen nabaritasun-akta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste biderik izan ezean, auzitegiak probidentzia bitartez aginduko du hildakoaren ahaide, lagun edo auzokideengana jotzea, hildakoa **abintestato** hil den eta oinordetza legitimorako eskubidearekin ahaiderik dagoen aztertzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 Ondorengoen eta aurreko ahaideen artean, ordaintzeko ordena finkatzeko mantenu-hartzailean **abintestato** oinordetzari dagokion deialdiei so egin beharko zaiela dio KZren 144. artikuluak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hau da, Indar Armatuetako kideen testamentu-epaiketa edo **abintestato** judizioa azaltzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ordena zibilean, gerra garaian, jurisdikzio militarrari dagokio ekimenean edo nabigazioan hil diren Indar Armatuetako kideen testamentu- eta **abintestato** -judizioen prebentzioa egitea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, kausatzaileak ez badu testamentuz oinordetza antolatzen edota soilik bere ondarearen zati bat soilik antolatzen badu, legeak ezarriko du bere ondasunen banaketa (" **abintestato** " oinordetza, KZko 668 art.). ETC-entziklopedia

---

abio 1 *iz* abiatzea.

Jauzi batean bertsoaren beste muturrera, entzuleak dauden aldera, iritsi ahal izateko behar duen **abioa** hasi da kalkulatzen, zalantzaka. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aparkaleku-kale bat behar zuen gureak, hortik zarata: motozikletak, loka-gunean orroka, eta ondoren ganbio-zartaka, baina okerrena Alfa Romeo hura zen, behin eta berriro zetorrena eta aldiro-aldiro lasterketarako **abioan** zirudiena. Joxe Austin Arrieta

Leihatilazaina eskuak sakelan gelditu da trenaren **abioari** begira. Koldo Izagirre

IDOIAK **ABIOA** EMAN ZION nire bizitzari, zorabioa sentiarazterainokoa batzuetan. Juan Kruz Igerabide

2 *abio motor (corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Halako **abio motorretan** , izan ere, estaldura koipez kaltetuta daukatelarik, zirkuitulabur partzialak sor daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

abioi *(ETCn **959** agerraldi; cf **hegazkin** ETCn **22.134** agerraldi) iz* hegazkina.

Atsegin ditut hegaztien eta **abioien** hegaldiak. Joan Mari Irigoien

Bizpahiru **abioi** ikusi genituen aireratzen, eta beste hainbat lurra hartzen. Joan Mari Irigoien

Abioia hartu eta joan, **abioia** hartu eta etorri. Lourdes Oñederra

Lucyri goiz samar iruditu zitzaion ordu hura, kontuan izanik **abioia** ez zela hamaika eta erdiak arte abiatzen. Joxemari Iturralde

Abioia hamar minutu barru aterako da. Pako Aristi

Abioi bat ez da aireratu motorrean txori bat zeukalako. Pako Aristi

Hegaldiak bere horretan jarraitu zuen Londresko Gatwick aireportuan **abioia** lurreratu zen arte. Joxemari Iturralde

Kafe bat hartzea erabaki du, hogei minutu falta dira oraindik **abioia** iristeko. Lourdes Oñederra

2004an Boeingek 285 **abioi** komertzial entregatu zituen; Airbusek 320. Berria - Harian

Ez harritu azken judizioko egunean **abioi** supersoniko batean itzultzen bada. Joan Mari Irigoien

Izan ere, **abioi** militarrak besterik ez ditut ikusten kontrakoa ikusten saiatu arren. Berria - Euskal Herria

Bidai merkeak saltzen dituzten **abioi** konpainia batean nihoala Woman aldizkaria gainetik irakurtzeko aukera izan nuen. Berria - Kultura

Hemendik gutxira, eserleku bakarreko **abioi** hori saldu, eta bikoa erosi beharko duzu, Ander. Joan Mari Irigoien

Suposatzen zen Londreserako **abioia** eguerdiko hamabi eta erdietan aterako zela. Joxemari Iturralde

Coruñara **abioian** joan nahi zutelako eta ez autobusean. Berria - Kirola

Imajina ezazu zuretzat autorik gabeko txoferra izan nintzela eta **abioirik** gabeko pilotua. Joxemari Iturralde

Gerra zibilean euskaldunak izan ziren lubakiak egiten ez zekiten bakarrak, linealak egin zituzten eta etsaiek horrela askoz errazago hiltzen zituzten **abioietatik** tiro eginez. Mikel Hernandez Abaitua

Bidai merkeak saltzen dituzten **abioi** konpainia batean nihoala *Woman* aldizkaria gainetik irakurtzeko aukera izan nuen. Berria - Kultura

Egun on esan eta jarraian esplikatu zien Tomas ari zirela **abioi** txartelez arduratzen. Joxemari Iturralde

Abioi eta auto istripuen argazkiekin bezala, prentsan agertutako argazki bat bilatzen du Andy Warholek, baina ez edozein. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abioi bat** (8); **eta abioi** (3)

---

abioitxo *iz adkor* abioi xumea.

-Baina **abioitxo** bat hegan ikusi, eta zelaira sartzea bururatu zaigu, bertatik bertara ikusteko -esan zuen Karmelek. Joan Mari Irigoien

---

abioneta *(ETCn **51** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **hegazkin arin** agertzen da, ETCn **100** agerraldi) iz* abioi txikia, potentzia txikiko motorra duena.

Aldiro eztulka eta itoka hasten den **abioneta** horietakoa izango da, zeharo izututa egingo dut bidaia osoa eta, hala ere, lurraldea estimatzeko gauza izango naiz, airetik, ikaragarri ederra baita. Joseba Sarrionandia

Eta **abioneten** gainean aireko ekilibristak. Unai Elorriaga

Santoñako gertaldiaren inguruan gauza bat zegoen guztientzat argi, eta hori kontatu nahiko zion notarioari: beren burua entregatu zuten gudarien aurrean jartzeko Ajuriagerra Miarritzetik Santoñara **abionetaz** itzuli izanak -eta hori eginez bere heriotza kondena sinatu zuen-, hots, burukide bakar baten portaerak, duintasuna eman zien gainerako guztiei. Ramon Saizarbitoria

Hamabi gizonen besoak *Canadian Rescue Service*-ko **abionetari** agurka. Koldo Izagirre

---

abiotiko 1 *izond* ingurumenez mintzatuz, bizia ahalbidetzen ez duena; ekosistema batean oinarrizkoa den faktore ez biologikoa.

Ingurumen ezaugarri jakin batzuk ditu, hau da, ezaugarri biotikoak eta ezaugarri **abiotikoak**. Berria - Gaiak

Faktore **abiotikoek** baldintzatu eta mugatzen dute, hala nola hezetasunak, tenperaturak, gazitasunak, lurzoru motak eta abarrek. Berria - Gaiak

2 *faktore abiotiko*

Faktore abiotikoek baldintzatu eta mugatzen dute, hala nola hezetasunak, tenperaturak, gazitasunak, lurzoru motak eta abarrek. Berria - Gaiak

---

abisal 1 *izond* itsas uretan oso sakon dagoena.

Baina igual entzungo da kanpai hotsa, pentsatuko duzu, itsaspeko sakontasun **abisaletan**. Joseba Sarrionandia

· *irud/hed* Bere begiradaren lerro zuzenak abiadura **abisal** eta urduri batean arrastaka eramango balu bezala zen. Harkaitz Cano

2 *hondo abisal* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Ozeanoaren **hondo abisalean** murgiltzen nindunan, nik bakarrik ikusten nituen munstroz, pertsonaiez eta paisaia ilunez inguraturik. ETC-literatura, saiakera

Hondo abisaletan sentitu berritan, gutxienez flotatzen sentitzen zara orain. ETC-literatura, saiakera

Hondo abisal batean edo muino garai batean, horren ondoko jatetxearen apaingarri? ETC-literatura, saiakera

Iluntze hartan emakumeak beso bat bendaz bildua eta lepotik xingolaz eskegia zerabilen, begietako zuloetan **hondo abisalak** zituen eta, batez bestekoan, zoramenaren labar-ertzean ekilibrista zebilela erraz antzematen zitzaion. ETC-prentsa

Gauza bat zait kontsolagarri: han nonbait, itsas **hondo abisaletan** edo, izango dela iritsi ez eta irudikatu ere ezin dugun leku bat. ETC-prentsa

Hodi hidrotermaletatik gertu bizi diren animaliek zein itsas **hondo abisaletan** bizi direnek ez dute eguzki argiaren energia erabiltzen. ETC-entziklopedia

Gastropodoak ingurune askotan bizi dira: zelaietan, basoetan, basamortuetan eta mendietan; putzu txikietan, ibaietan eta lakuetan; estuario, uholde-lautada eta mareartekozabalguneetan, itsaso zabalean eta **hondo abisalean**. ETC-entziklopedia

3 *lautada abisal* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Tipikoki, 10-15 km-ko sakonera izaten du, 5-10 km ozeanoetako **lautada abisalen** azpitik, beraz, munduko sakonera handienak (Marianetako fosa) ingurune hauetan daude kokatuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikerketa genetikoek, ordea, Foraminiferaren barruan sailkatzea ekarri du. **Lautada abisaletan** bizi dira. ETC-entziklopedia

4 *ordoki abisal* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ordoki abisal: Arro ozeanikoaren itsas hondo hondoko sakoneko ordoki edo malda leuneko tokiak. ETC-entziklopedia

Gaskoiniako Landetako kostaldean zehar sortzen dituzten sedimentu jalkinak nagusia den ipar-mendebaldeko olatuei esker Bizkaiko golkoko **ordoki abisalean** galtzen dira. ETC-entziklopedia

Pertsonaien **ordoki abisaletara** jaisteko, Serranok ipuinek beren baitan dituzten teknika guztiak erabiltzen ditu. ETC-prentsa

---

abisatu, abisa(tu), abisatzen **1** du *ad* ohartarazi, gaztigatu, abisu eman.

'Berdeak datozela.' **abisatu** zuen. Joseba Sarrionandia

"Business district" **abisatu** zuen gidariak. Ramuntxo Etxeberri

-Ordua da - **abisatu** zien neskameak atetik. Koldo Biguri

Horretarako, aurretiaz egon beharra dago prestatuta, eta zure amak ez dit **abisatu** oraindik orain baino. Juan Garzia

-Gauza zinez larriak gertatzen ari dira gure erresuman - **abisatu** zuen-. Elena Touyarou

'Arnasa sudurretik hartu,' **abisatuko** dizute. Joseba Sarrionandia

-Kasu zer erraten duzun - **abisatu** zuen-. Aingeru Epaltza

Irakurleari **abisatzen** dio: lehenengotan, egiak eta gauzak sineskaitz iruditzen zaizkio, baina, asimilatu ahala, errutinazko bihurtzen dira, eguneroko ortziaren urdina bezala. Xabier Amuriza

Ez kezkatu, zoaz, eta **abisatuko** dizut zerbait dagoenean. Josu Landa

Berriz esan nion bidaiaren eskaintza egiten zidatenean **abisatuko** niola. Ramon Saizarbitoria

- **Abisa** diezaiotela nire koinatuari non nagoen -esan zion Martinek behin baino gehiagotan Lindari. Koro Navarro

Soldadu joandakoentzat arropak bildu behar zirela ere **abisatu** zuen danboliteroak. Joseba Sarrionandia

Komedorean bazkaltzen ari ginela **abisatu** zidaten errektorearenera joateko. Joseba Sarrionandia

Haatik, "kontu xuritzeak" gerta balitez, "alderdia lehertuko" litzatekeela **abisatu** du. Berria - Euskal Herria

Oharrak **abisatzen** zidan ez zela eguerdia arte etorriko. Anjel Lertxundi

-Hala ere, negu gorrian izaten dira asteak autoz ibili ezingo zaretenak - **abisatu** zigun don Tirsok. Xabier Mendiguren Elizegi

Goizeko hamaikak aldean, kotxea bazetorrela **abisatu** zuten. Koro Navarro

Karta postal batek gure etxekoak **abisatu** behar zituen bagindoazela. Marzel Etxehandi

Nigandik hiru-lau urratsetara zegoen eta, **abisatu** ere gabe, jauzi batean hurbildu, eta sekulako ostikoa eman nion ipurdian. Joan Mari Irigoien

Arropak eta poltsak zeuden lekura joan zen, lehortu, jantzi eta **abisatu** zigun bazihoala Ehiztaria ihesi abiatu zen, eta lagunei **abisatu** zien: [...]. Joxemari Iturralde

Gauero, santuak Jauna gorestera jaikitzeko ohitura zuen orduan, zapelatzak bere kantuz eta hotsez **abisatzen** zion. Askoren artean

Montyk eta Jon Gurutzek aurrez **abisatu** zidatenez, Donostian jaio baina Errusian hazitakoa zen Vaqueriza. Xabier Mendiguren Elizegi

Aldez aurretik **abisatuta**. Berria - Mundua

Soziologoak hasita zeuden kontsumoaren gizarteak zekartzan kalteez **abisatzen**. Anjel Lertxundi

Kontuz ibiltzeko **abisatzen** diat. Txillardegi

Ikasten baduk, **abisa** iezadak. Koldo Izagirre

Institutuak eta gurasoek hitzartu zuten elkarri **abisatutako** ziotela gertaerak gainezka egiten zuela atzemanez gero. Berria - Euskal Herria

Esan zien **abisatuko** ziela tea prest zegoenean. Joxemari Iturralde

Luszindak, ordea, **abisatu** egingo dio Kardeniori. Patxi Ezkiaga

-Medikuari **abisatu** beharko diogu -larritu zen. Juan Kruz Igerabide

Beharrik jendea erne ibili da, suprefeturatik gisa hartako deia ukanik, ura goiti ari zela, hautetsiek berehala **abisatu** baitituzte ur hegi hortan bizi direnak. Herria

Joanden astean, gure saratar berriketariak **abisatu** gintuen aker gaixto bat jokatzen zitzaiola han gaindi zoan jendeari, bi emazteki bazauzkala ordukotz zauriturik. Herria

-Apeza **abisatu** behar dugu, ez? Daniel Landart

Familia **abisatuko** diagu hire bila jin dadin. Itxaro Borda

Antolatzailek **abisatzen** gaituzte, ateak 8 ak 1/4 tan zabalduko dituztela, eta ikusgarria 9 etan xuxen hasiko dela. Herria

Gainera, larrialdi zerbitzuak **abisatu** genituen, baina honera ez zen inor etorri. Berria - Euskal Herria

Ezaugarri horietako poltsaren bat ikusiz gero Poliziari **abisatzeko** eskatu dute. Berria - Gaiak

Telefonoaren bestaldekoa Sergioren arreba zen, erdi negarrez adierazi ziona aita hil zitzaiela, bihotzekoak jota, eta **abisatzeko**, mesedez, Sergiori. Joan Mari Irigoien

Telefonoz deitu nion, **abisatzeko**, eta haren ahotsa inoiz baino susmagarriagoa begitandu zitzaidan, linearen beste aldetik. Iban Zaldua

Medikuari **abisatzeko**, eta gauzak "gisan" egiteko. Aingeru Epaltza

Behar zaitut **abisatu** español tropa liberalak ari direla hemendik hurbil, Espainiako lurretan, beren maniobretan gau eta egun. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

- **Abisatu** nahi izan diagu bordara hurbilduz gero galdua hintzela. Aingeru Epaltza

"Ezin da errege az hitz egin aitaren aurrean", **abisatu** zion lagunari. Xabier Olarra

Cesare Pavesek halako keinu definigaitz bat egin du bere eskuez airean, "heuk ikusiko duk, baina **abisatuta** hago" esaten ari balitzait bezala. Anjel Lertxundi

- **Abisatua** nintzen zure etorreraz -esan zidan agurtzeko-. Matías Múgica

Bidaltzen bazaituzte, ez gero esan **abisatuta** ez zeundenik. Koro Navarro

Elurra **abisatu** gabe etorri da Londresko asfaltoaren gainera, Fionak horrenbeste maite duen asfaltora. Lutxo Egia

2 (era burutua izenondo gisa)

Irakurle **abisatuengatik** ez balitz, oharkabean pasatuko litzaizkioke. Anjel Lertxundi

Irakurle **abisatuak** bakarrik erreparatuko zuen, bat-batean Ortega-ren terminologia nola aldatzen den izkribuan. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abisatu ahal (3); **abisatu barik** (4); **abisatu behar** (14); **abisatu bezain** (3); **abisatu bezain laster** (3); **abisatu digu** (4); **abisatu du** (13); **abisatu dute** (10); **abisatu egin** (7); **abisatu egiten** (4); **abisatu egiten du** (3); **abisatu ere** (3); **abisatu eta** (7); **abisatu ez** (3); **abisatu gabe** (47); **abisatu gabe eta** (3); **abisatu nahi** (4); **abisatu nion** (6); **abisatu zidan** (3); **abisatu zien** (4); **abisatu zigun** (8); **abisatu ziguten** (5); **abisatu zion** (8); **abisatu zituen** (4); **abisatu zituzten** (3); **abisatu zuen** (34); **abisatu zuen joanttok** (3); **abisatu zuten** (7); **abisatua du** (3); **abisatua izan** (4); **abisatuak izan** (4); **abisatuko dizuet** (3); **abisatuko dizut** (4); **abisatuta zaude** (3); **abisatzen digu** (4); **abisatzen dizut** (3); **abisatzen du** (15); **abisatzen dute** (3); **abisatzen gaituzte** (3); **abisatzen zion** (3); **aintzinetik abisatuz** (3); **aitzinetik abisatu** (3); **aurrez abisatu** (4); **aurrez abisatu gabe** (3); **baina abisatu** (4); **baina abisatu gabe** (3); **batek abisatu** (7); **berak abisatu** (5); **dela abisatu** (3); **ere abisatu** (6); **eta abisatu** (9); **eta abisatzeko** (3); **genuela abisatu** (3); **hurrengoan abisatu** (3); **nik abisatu** (4); **poliza abisatu** (4); **poliza abisatu dute** (3); **telefonoz abisatu** (3); **zela abisatu** (4)

---

abisatzaile *iz* abisatzen duen pertsona.

Abisatzaile bakoitzak bere bailara izatean zian, eta aurrez hitz eginda abiatzen zituan, bakoitzak nondik nora ibili behar zuen, eta lanak bukatutakoan non bildu behar zuten jakiteko. Pako Aristi

---

abisiniar *izond/iz* Abisiniakoa, Abisiniari dagokiona; Abisiniako biztanlea.

Behin biolin bat saldu zion markes baten etxetik bota zuten zerbitzari **abisiniar** batek. Felipe Juaristi

Berrogeita hamar mando ziren, salgai ederrez zamatuak, eta ororen buru, zela ederrez apaindua zegoen mando baten gainean, esklabo **abisiniar** galant bat zetorren. Patxi Zubizarreta

Abisiniarrek berrogeita hamar eguneko garizuma gogorra dute, eta hainbeste ahultzen dituena, non denbora luzean ezin izaten baitute ezer egin. Iñaki Iñurrieta

Horiez gainera, Rafael Ruiz Balerdiren (Donostia, 1934-Altea,1992) *Nahaspila I* olioa eta Andres Nagelen (Donostia, 1947) *Max Factor I* eta ***Abisiniarrak*** *Olifreyn* collage-ak zaharberrituko ditu Bilboko museoak, datozen hilabeteetan. Berria - Kultura

---

abisiniera *iz* Abisiniako –egungo Etiopiako– hizkuntza.

A: ehenengo bokala da, alfabeto guztietako lehenengo letra; amhareran edo **abisinieran**, berriz, hamahirugarren letra da, eta errunikoan hamargarrena. Lopez de Arana

---

abismal *izond* amildegi hondogabea bezalako sakona eta barneraezina dena.• *irud/hed*

Historiak anitz izenez ezagutzen ditu (espekularrak, **abismalak**, kainitak), baina guztietatik harrerarik onena izan duena histrioiena da, Aurelianok eman eta haiek ausardiaz berentzat hartu zutena. Juan Garzia

Bezero **abismalentzat**. Karlos Linazasoro

---

abismo *iz* amildegia.

XYZ: **Abismoan** zabuka ari gara, kosmogonia infinitu honen altzoan. Karlos Linazasoro

Onomatopeiak, hizkuntzaren **abismora** galtzerakoan, itzulerarik gabeko abisoa ematen digu: Patziku Perurena

Funtsean izate platonikoaren metafisika zaharra balioaren metafisika azpian mozorrotuta jarraitu nahi izateaz, h. d., absoluturen bati desesperatuki atzamarrekin oratu nahi izateaz, **abismoan** hondoratzeko beldurrez. Joxe Azurmendi

---

abiso ik **abisu**.

---

abistu *iz* txistua.

-Zatoz gurekin argira -entzun zitzaion lehen zaindariari, eta hatz bi ahoan sartuz, bere aldiko **abistua** egin zuen, hesi barruan zeudenei hots egiteko. Felipe Juaristi

Sebastianek **abistu** egin zion Ubanberi guregana hurbil zedin, eta handik gutxira Pantxoren atzetik gindoazen laurok hesi moduko hartan ikusezina zen pasabide batetik, hitzik egin gabe, denok ere adi. Bernardo Atxaga

---

abisu *(orobat **abiso** g.er. eta **abixu** g.er.)* **1** *iz* jakinarazpena; oharra.

Orain ordubete-edo **abisu** bat ailegatu zaiok ospitaletik, Harris andrearen Winifredek ekarri dik hona, alaba gazteena hil egin dela umea egiterakoan. Koro Navarro

Fructuoso atzera olagarro-jokoan hasita zegoen Jetrurekin, Amanciori txanda kenduta zakar, eta atseginez hartu zuten bai Jetruk bai Amanciok Romanen **abisua**: berandu zela, eta, ordaindu ere, ordaindu beharko genuela. Inazio Mujika Iraola

Abisu bat dela uste dut... arriskua datorrela esan nahi du. Iñaki Mendiguren

Astelehenean **abisu** bat eman zidaten dendan: "Bihar, goizeko hamaiketan, osaba Feliperen etxera azaltzeko". Txillardegi

"Barkatu" esan nion, **"abisu** bat pasatu beharrean naiz neu ere". Ramon Saizarbitoria

Potoloa atzean geratu da" ohartarazi du taldeko batek; denengana iritsi da **abisua**, baita aurrea hartuta aztarna berrien bila dabilen presatiarengana ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Orain ere **abisu** bat emango dizuet: ez gaitezen abiatu haren atzetik, beste zoritxarren bat jaso nahi ez badugu. Juan Kruz Igerabide

Ez dezagun pentsa naturaren indarrak menderatuak ditugunik, baizik eta gogoan dezagun -sermoi tankera duen arren **abisu** honek- tarteka gertatzen diren ustekabeko triskantzok ez direla klima aldaketaren erruak preseski. Pello Zabala

Nork utzi dit **abisu** hau? Joxemari Iturralde

1902an, Errege jaunak berak eskatu zion, telegrafiaz **abisu** pasatzeko Santanderko Gobernadore jaunari eta Errege jaun berari, arren, bakoitzari egunean bina bider. Pello Zabala

Zestoako balneariotik **abisua**, ea lagunen batekin jotzera joango al nintzen. Pako Aristi

Argi zegoen **abisua**, ohartaraziak geunden: auto gehiagorik ez. Karlos Linazasoro

Izozteak bere horretan jarraitu beharrean, mudantza badakar, ez dela txantxetakoa izango, elurraren **abisua** gerta daitekeela, alegia. Pello Zabala

Zeren **abisua** eman nahi zidan Dartaietek? Anjel Lertxundi

Beldur salbatzaile batek eman zidan **abisua**. Iñaki Segurola

Uhartera errekaladan heldu orduko, nostromoak tripulazioa bilduko du, saihestu beharreko arriskuen **abisua** emateko, daitezkeen istripuen zerrenda egiteko eta dokumentu bat sinarazteko. Joseba Sarrionandia

Adiskide zituen probintziako buruzagi batzuek ere **abisua** bidali zioten antzokira ez agertzeko. Elizen arteko biblia

Batxilerreko bosgarren edo seigarren urtea egiten ari nintzen Donostiako korazonistetan, han Mundaizen, egun batez eguerdia baino lehenxeago atezainaren **abisua** hartu nuenean: klasetik ateratzeko. Joan Mari Irigoien

-Gaizki ulertu du **abisua** Harris andrearen neskak. Koro Navarro

Oker ez banago, zuk utzi zenidan zuengana etortzeko **abisua**. Migel Angel Mintegi

Zein goizalde ezberdinak lehenengo deiarena, Maisuaren askatasuna erdiesteko azken urratsa egin nuenekoa, eta mutila, izenaren galdea ere egin ez nion Kristobal hura, ontziratzeko **abisua** ekartzen etorri zitzaidanekoa. Edorta Jimenez

'Pipitaki papataki,' esan zuen amamak, 'hagin bakarreko abadea jendeari **abisuak** ematen'. Joseba Sarrionandia

Hortakotz dira mozkin-zergaren **abisuak** berantago jinen. Herria

· Motoan esertzerakoan hotzikara sentitu dut; gauaren **abisua**. Pako Aristi

Gurinaren kolore horixka zuen zeruak, eta beste elurte baten **abisuak** nabarmentzen zitzaizkion batere haizerik gabeko aire hotzari. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Udazken gehiena haizea kalman egotea ere ez baita **abisu** ona: gero izaten dira kontuak, bestela. Pello Zabala

Plastikozko zikinontzi baten ondoan, afitxa batek **abisu** ofizial baten berri ematen zuen. Ramuntxo Etxeberri

Kontua da, lehengo astean **abisu** garrantzizko bat eman niela nire irakurleei eta uste dut, Patri, zuk ere jakinaren gainean egon behar zenukeela. Hasier Etxeberria

Apezak eman zituen azken **abisuak**. Daniel Landart

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina zer **abisu** klase ematen ari zaio Marlowe neskari? Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Segundo batzuk geroago, alarma·**abisua** pasako du larrialdi zentrora. Berria - Euskal Herria

Bonba **abisua** jaso bezain pronto, zerbitzua eten zuen Metro Bilbao enpresak, eta Zazpikaleetako geltokian metroak hustu zituen. Berria - Euskal Herria

Halako jarreran egon ginen luzaroan, harik eta soinua entzun arte, burua itzuli eta hara han danboliteroa bere pregoi **abisuarekin** tan tan tantanka zetorrela ikusi arte. Joseba Sarrionandia

Hala, Diputaziora jo eta orduko Fomentoko Komisioa eta Laborantzakoa astindu eta eguraldi **abisuak** herri guztietara zabaltzeko sistema baten bila abiatu ziren. Pello Zabala

5 ***abisu eman*** abisatu.

Abisu eman zidaten kosk egiten zuela eta kontuz ibili beharra zegoela. Koro Navarro

Norena da poltsa hori? Susmoa baduzu, **abisu eman**. Berria - Harian

Loroak karranka latzak bota zituen, etxekideei **abisu emateko** bezala. Matías Múgica

Herriko plangintza edo "carte communale" delakoaz **abisu eman** dute hautetsiek. Herria

Justiziari **abisu eman** nion beraz. Josu Zabaleta

Horregatik **eman** nahi nizun **abisu**, Patri. Hasier Etxeberria

-Kasu! Ez niri ziria sar - **abisu eman** zion Joanttok Basileri, noizbait mahaitik altxatu zirelarik-. Elena Touyarou

Atea jotzerakoan, berezko senak **abisu eman** dio Joseri Jainkozko hitz usadiokoak esan behar dituela. Anjel Lertxundi

Busti-bustia zegok motxinbero hau -oihu egin du aluan ari denak, bere lagunari **abisu eman** nahirik-edo. Juan Martin Elexpuru

Abisu emaileak **abisu eman** nahi izatea, ezin ematea eta heroia bizirik ateratzea, abisu emaileak **abisu ematea** eta heroia hala ere hiltzea, abisu emaileak **abisu ematea** eta heroia salbatzea -hau ere oso maiz ikusten dena-, abisu emaileak abisurik ez ematea eta hala ere heroia hiltzea, edo abisurik ez ematea eta heroia salbatzea... aukera hauek denak, eta gehiago ere bai, idatzita daude. Edorta Jimenez

Segada prestatu dutenei **abisu ematera** ontzi bat bidali behar dugu, Telemako etxera itzulia dela adierazteko. Juan Kruz Igerabide

Horretarako ekarri nau Eustakiok, zuei **abisu emateko**. Koldo Izagirre

Urte berrirako iragarri zituen nobela horietan lanean ari direla jakinaraziz eta sormen askatasunaren aurka egindako erasoaren kontra epaitegira joko dutela **abisu emanez**. Joxean Agirre

Telefono berezi bat jarri da, Blacken arrastoren bat duenak berehala **eman** dezan **abisu**. Iñaki Mendiguren

· **Abisu emaileak** abisurik ez ematea eta hala ere heroia hiltzea. Jon Alonso

Noski, jauzi horren **abisu-emaile** bizkorrena natura bera da. Pello Zabala

6 ***abisuzko*** *izlag*

Lekuak baietz erantzun zion, eta Seigarrenek arreta handiz azaldu zion emakumeari harainoko bidea, zehatz-mehatz noiz abiatu, eta nolakoa izango zen beraren ongietorrizko edo **abisuzko** txistu hotsa. Anton Garikano

7 *aurre abisu* ik **aurreabisu**.

8 ***legezko abisu*** *(corpusean ez dago; ETCn **197** agerraldi)*

Egia erran, miletan nahiago nituen artikulu haiek jo, ezinez eta Les Petites affiches astekariko **legezko abisu** nardagarriak! ETC-literatura, saiakera

LEGEZKO ABISU - CLPB. ETC-prentsa

Egoitza horiek "itxita egongo balira", jakinarazpena **legezko abisuen** bitartez egingo litzatekeela dio Gorenak, hots, egunkari, auzitegiaren iragarpen taula edo buletinen bidez. ETC-prentsa

Jordaniako salafistek **legezko abisu** islamista bat igorri dute aurten, eta adierazi dute Siriako Gobernuaren aurkako borroka armatua babesten dutela. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abisu bat (31); **abisu bat eman** (6); **abisu bat zen** (3); **abisu emaileak** (5); **abisu emaileak abisu** (4); **abisu eman** (31); **abisu eman nahi** (3); **abisu eman zien** (3); **abisu eman zion** (4); **abisu eman zioten** (3); **abisu emanez** (4); **abisu ematea** (3); **abisu emateko** (14); **abisu emateko eskatu** (3); **abisu ematen** (5); **abisu ematera** (6); **abisu eta** (7); **abisu eta proposamenak** (3); **abisu garbia** (3); **abisu hau** (9); **abisu herriko** (20); **abisu herriko etxeak** (6); **abisu herriko etxetik** (11); **abisu hori** (5); **abisu jaun** (4); **abisu jaun auzapezak** (4); **abisua bidali** (4); **abisua da** (3); **abisua eman** (76); **abisua eman behar** (5); **abisua eman du** (6); **abisua eman dute** (5); **abisua eman eta** (5); **abisua eman nahi** (4); **abisua eman zieten** (4); **abisua eman zion** (7); **abisua eman zioten** (6); **abisua eman zuen** (7); **abisua eman zuten** (6); **abisua emana** (4); **abisua emanen** (3); **abisua emango** (4); **abisua ematea** (3); **abisua emateko** (11); **abisua ematen** (9); **abisua ertzaintzari** (4); **abisua eta** (6); **abisua faltsua** (3); **abisua hartu** (3); **abisua izan** (14); **abisua izan zen** (5); **abisua jaso** (24); **abisua jaso eta** (4); **abisua jaso zuen** (7); **abisua jaso zuten** (3); **abisua pasa** (4); **abisua pasatu** (4); **abisuak ez** (3); **abisuren bat** (6); **abisurik eman** (17); **abisurik eman gabe** (9); **abisurik ez** (6); **abisurik gabe** (16); **abisurik jaso** (6); **aldez aurretiko abisurik** (4); **aurre abisua** (3); **aurretiko abisurik** (4); **aurretiko abisurik gabe** (3); **azken abisua** (5); **batek abisu** (3); **baten abisua** (4); **bonba abisu** (4); **da abisu** (4); **da abisua** (3); **digute abisua** (3); **du abisua** (5); **dute abisua** (6); **emaileak abisu** (4); **eman du abisua** (3); **eman dute abisua** (3); **eman zidan abisua** (3); **eman zien abisua** (3); **eman zion abisua** (8); **eman zioten abisua** (6); **eman zuen abisua** (5); **eman zuten abisua** (4); **ere abisu** (3); **ere abisua** (3); **eta abisu** (14); **eta abisu eman** (3); **eta abisua** (10); **eta abisua eman** (3); **eta abisuak** (6); **eta abisurik** (5); **eta abisurik gabe** (3); **etxetik abisu** (7); **gertatutakoa abisua** (3); **gertatutakoa abisua izan** (3); **guardia zibilari abisua** (3); **hazparne abisu** (5); **herriko etxetik abisu** (6); **ibiltzeko abisua** (3); **inolako abisurik** (9); **inolako abisurik eman** (5); **inolako abisurik gabe** (3); **itsasu abisu** (3);

itsasu abisu herriko (3); **jakinarazpenak eta abisuak** (3); **jaso zuen abisua** (3); **jaso zuten abisua** (4); **lapurdi hazparne abisu** (4); **lapurdi itsasu abisu** (3); **lehen abisua** (19); **lehen abisua izan** (3); **lehenengo abisua** (8); **tik abisu** (7); **zenaren abisua** (3); **zibilari abisua** (3); **zibilari abisua eman** (3); **zidan abisua** (4); **zien abisua** (4); **zion abisua** (10); **zion abisua ertzaintzari** (3); **zioten abisua** (6); **zuen abisua** (13); **zuen lehen abisua** (3); **zuten abisua** (10)

---

abisuka *adlag* abisu emanez.

Niri berriz, sen atabikoa **abisuka** ari zitzaidan. Joxean Sagaztizabal

---

abisuketa *iz* abisatzea.

-Garai hartan, ez diat esango leku guztietan horrela moldatzen zirenik, baina hemen behintzat bagenian ohitura bat inor hiltzen zenean egiten zena: **abisuketa** esaten zitzaioan. Pako Aristi

---

abisulari *izond* abisu ematen duena.

Egia-erran, andere **abisulariak** ere salatzen digu hortan berean, bere mintzo legun eta ongi ahoskatuarekin, jausterateko martxa hartua dugula Orlyrat buruz. Herria

---

abitaminosi *iz* bitamina gabezia.

Abitaminosia, paralisia..., inork ez zekien zer zen. Jokin Urain

Tradizio ezak hondatu, ahuldu, mehetu egingo luke hizkuntza, hala nola **abitaminosiak** gorputzaren azala. Bernardo Atxaga

---

abitatu ik **habitatu**.

---

abitu 1 *iz* elizgizonen eta mojen soinekoa.

Abitua erlijioaren zerbitzurako duk eta santutasunaren ezaugarri. Askoren artean

Emazteak eta alabak monasterioetan sartu ziren; aita-semeek, berriz, Anaia txikien **abitua** hartu zuten. Askoren artean

San Frantziskok eta honen anaiek neurriz gaineko poza eta alaitasun berezia sentitzen zuten, kristau herriko fededunen bat, Jainkoaren Espirituak erakarrita, Elkarte santuko **abitua** hartzera etortzen zenean. Askoren artean

Ez baitu inork zure **abitua** eraman ahal izango, basoetan izan ezik. Askoren artean

Gizon bat agertu zitzaion, Anaia txikien **abituz** jantzia. Askoren artean

Bat-batean, espiritua garretan zuela, **abitua** erantzi zuen, bestearen antzera biluzik geratu eta Asisa joan zen anai Leon lagun hartuta, honek anai Rufinoren eta beraren **abituak** zeramatzala. Askoren artean

Ordena gero eta gutxiago gustatzen zitzaionez, azkenean **abitua** uzteko eta mundura itzultzeko erabakia hartu zuen. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Oinutsik ibiltzen zen, **abitu** zarpailez jantzita. Askoren artean

Haren **abitu** pobreak adierazten zuen non pilatzen zituen bere aberastasunak. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Bere **abitu**-zatien mirarizko indarra. Askoren artean

· Gizon hauek, erlijioso-**abitua** hartu zutenean, ez ziren giza izaera berriaz jantzi, baizik giza izaera zaharra estali besterik ez zuten egin. Askoren artean

Nola Luis santua, Frantziako erregea, anai Egidio ikustera joan zen, erromes **abitua** jantzita. Askoren artean

4 irud/hed

Nola, Kristoren aholkuak Ebanjelioan entzun eta ulertu ondoren, kanpoko jantzia aldatu eta barnean eta kanpoan perfekzioaren **abitu** berria jantzi zuen. Askoren artean

5 ***abitua hartu***

Hala, Jainkoak argiturik, mundua eta munduaren maitaleak bertan behera uztea pentsatu zuen eta bere burua Gurutziltzatuaren besoetan eskaintzea, Frantzisko santu gurutziltzatuaren **abitua hartuz**. Askoren artean

6 ***abitu hartze*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Gogoan dut **abitu hartzea** Idiazabalen egin genuela. ETC-prentsa

7 ***abitua jantzi***

Hala, hura berekin eraman zuen eta, Ordenako **abitua jantziz**, bere lagun berezi egin zuen, haren xalotasun zoragarriagatik. Askoren artean

[...] gabeko doluarengatik, Nire semea, nire semea, kristauen kanpamentuan, bitartean, dena gizonen artekoa da, zeren han, emakumerik bada, bestelako helburu eta arrazoiengatik baita, datorrenari izterrak zabaltzea, alegia, soldadu hila, soldadu jarria, altuera eta lodierazko ezberdintasuna, behin **abitua jantzirik**, ez dira sumatzen, salbuespenak salbuespen. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abitua erantzi (3); **abitua hartu** (8); **abitua hartu zuten** (5); **abitua hartuz** (4); **abitua jantzi** (5); **anaia txikien abitua** (3); **eta abitua** (3); **frantziskoren abitua** (3); **ordenako abitua** (8); **ordenako abitua hartu** (3); **san frantziskoren abitua** (3); **santuko abitua** (3); **txikien abitua** (3)

---

abixatu ik **abisatu**.

---

abixoi 1 *iz Atherina* generoko itsas arrain txikia, Atlantikoko kostaldeko uretan bizi dena.

Noizean behin goitik behera jauziko dira kaioak, hegalak tolestuta buruz behera, fardel galduak lez, eta batzuetan **abixoi** txiki batekin, besteetan mokoa hutsik hegaldatuko dira berriro. Joseba Sarrionandia

2 ***abixoi handi*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Abotxa ("Atherina hepsetus") ur gazikara eta ur gezako arraina da, Atherinidae familiakoa. Batzuetan izen arrunta **abixoi handi** generokidea izendatzeko erabiltzen dute. ETC-entziklopedia

3 ***abixoi txiki***

Eta noizean behin goitik behera jauziko dira kaioak, hegalak tolestuta buruz behera, fardel galduak lez, eta batzuetan **abixoi txiki** batekin, besteetan mokoa hutsik hegaldatuko dira berriro. Joseba Sarrionandia

abixu ik **abisu**.

---

abizari *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* gezurretako arrautza, oiloek errun dezaten ohitzeko erabiltzen dena.

Sabai bazterrean habia bat ageri zen, erdian **abizari** batekin. ETC-literatura, saiakera

Abizari (sin. gezurrezko arrautza): arrautza-itxurako zeramika-pieza, oiloei arrautza errunarazteko erabiltzen dena. ETC-entziklopedia

---

abizen *(ETCn **7.652** agerraldi; cf **deitura** **1.522**)* **1** *iz* familia izena. ik **deitura**.

-Ez pentsa hain erraza izango denik, Duñabeitia jauna -erantzun nion, nik ere **abizena** aipatuz. Edorta Jimenez

Gogoratzen du egilearen **abizena** eta berea berdinak direlako erostea erabaki zuela. Iban Zaldua

Bi **abizenak** euskaldunak ez izatekotan, nahiago zukeela erdalduna lehendabizikoa izatea, Armendariz de Martínez esatea itsusi geratzen omen zelako eta Martínez de Armendariz, berriz, ondo. Ramon Saizarbitoria

Aitak orain Weber **abizena** zuen, baina Iruñean bizi izan zen garaian Faupel zen. **Abizenak** bestelako jantzia emango balu bezala idazten dugu. Alberto Ladron Arana

Sandra zuen izena, baina ez naiz gogoratzen ez **abizenaz**, ez eta zein erakunde demontretakoa ote zen. Iban Zaldua

Bibliografian liburuen zerrenda alfabetoaren arabera ordenatzen da, egilearen **abizenaren** arabera. Askoren artean

Euskal herritarren euskarazko **abizenak** euskaraz idatziko dira beti: Garcia Danborenea, Ramon Jauregi, Juan Manuel Egiagarai... Iñigo Aranbarri

Nola zian **abizena**? Iñaki Arranz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euskal herritarrak ez direnen **abizen** euskaldunak, aldiz, haien hizkuntzan bezala idaztea erabaki zen. Iñigo Aranbarri

Albanista Sagasta ez da, pentsa litekeen moduan, emakume baten izen bitxia, Albeniz ta Sagasta **abizen** itxuragabetuak baizik Euskal herritarren euskarazko **abizenak** euskaraz idatziko dira beti: Garcia Danborenea, Ramon Jauregi, Juan Manuel Egiagarai. Iñaki Arranz

Euskal **abizenekin** aise osatzen dira horrelako korda luzeak: [...]. Iñaki Arranz

3 *izen-abizen* *(**151** agerraldi, **49** liburu eta **56** artikulutan) pl*

Lanaren izenburu osoa, irakaslearen **izen-abizenak**, ikasgaiaren izena, zure **izen**-abizenak, [...]. Askoren artean

Bere legezko **izen-abizenak** omen zerabiltzan bere harreman sozialetan, ez kaxakoak. Koldo Izagirre

Orduan komandanteak nor zen galdetu zion, eta Hucken aitak **izen-abizenak** eman zizkion, desagertutako mutiko haietarik baten aita. Koldo Izagirre

Baina emakumeok ez dugu **izen-abizenik,** ondorioz, ez gara existitzen. Berria - Kultura

· Horien osasunari eta bizimoduari buruzko **izen-abizendun** datuetan oinarritzen da.Benetako izen-**abizenekin**, aldiz, zailagoa izanagatik, bada adibide baragarririk eguneroko prentsan. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abizen bat** (4); **abizen eta** (6); **abizen hura** (4); **abizena aldatu** (3); **abizena eaman** (4); **abizena esaten** (3); **abizena eta** (3); **abizena hartu** (3); **abizena hartu zuen** (3); **abizena zen** (4); **abizenak dituzte** (3); **abizenak eman** (4); **abizenak ere** (4); **abizenak eta** (13); **abizenak ez** (4); **abizenak jarri** (5); **abizenez ere** (4); **abizenik eman** (3); **abizenik gabe** (5); **akusatuaren abizena** (3); **baten abizena** (3); **baten abizena zen** (3); **bere abizena** (6); **bere abizenari** (3); **bere izen abizenak** (5); **bigarren abizena** (5); **diren izen abizenak** (3); **du abizena** (3); **egilearen abizena** (4); **egilearen abizenaren** (3); **eta abizen** (8); **eta abizena** (5); **eta abizenak** (6); **eta abizenekin** (3); **eta abizenez** (3); **euskal abizenak** (3); **guztien izen abizenak** (3); **izen abizen** (13); **izen abizen eta** (3); **izen abizenak** (102); **izen abizenak eman** (3); **izen abizenak ere** (3); **izen abizenak eta** (12); **izen abizenak jarri** (4); **izen abizenek** (3); **izen abizenekin** (11); **izen abizenen** (6); **izen abizenez** (6); **izen abizenik** (5); **izen eta abizen** (5); **izen eta abizenekin** (3); **nire abizena** (6); **nire izen abizenak** (5); **perez abizena** (3); **senarraren abizena** (4); **zuen abizena** (5); **zure abizena** (5)

---

abizendun *izlag/iz* abizena duena.

Baina proportzioan, goitizendunak ziren **abizendunak** baino gehiago. Andoni Egaña

Complutensen zebilen estudiante, eta denbora hartan euskal **abizendunen** bat aurkeztea ez zegoen, inondik ere, gaizki ikusia, alderantziz baizik. Iban Zaldua

Egun horietako bakoitza gogora ekarri nahi dugu, horien ostean, intolerantziaren eraginez heriotza bortitza jasan zuten izen eta **abizendun** gizon eta emakumeak daudelako. Berria - Euskal Herria

Ikerketa genetikoa, ordea, ez da eredu abstraktuen gainean egiten, gizabanako jakinen ehun eta zeluletan, eta horien osasunari eta bizimoduari buruzko izen-**abizendun** datuetan oinarritzen da. Berria - Gaiak

---

abjuratu, abjura(tu), abjuratzen du *ad* fedeaz ez kidekoez mintzatuz, uko egin, arnegatu.

Donostiatik Bilbora ordubete eskas behar zuela konturatzean, eta ez, bere gazte garaietan bezala, hiru ordu luze, zalditik erori eta bere fedeaz **abjuratzeko** zorian egon zen. Bernardo Atxaga

---

abkhaziar *izlag/iz* Abkhaziakoa, Abkhaziari dagokiona; Abkhaziako biztanlea.

Abkhaziarrak legez georgiarrak dira, baina Mosku herritartasuna ematen ari zaie eta hainbatek Errusiarekin bat egiteari ez liokete muzin egingo. Berria - Mundua

Gerora, borrokak piztu ziren **abkhaziarren** eta paramilitar georgiarren artean. Berria - Mundua

---

abkhaziera *(corpusean ez dago; ETCn **48** agerraldi) iz* Abkhazian mintzatzen den hizkuntza.

Abkhaziera abkhazen hizkuntza da; kaukasoar hizkuntzen artean Ipar-mendebaldeko kaukasoar familiakoa da, abazera, adigera, kabardera eta ubykherarekin batera. ETC-entziklopedia

Herritarrek abkhaziar pasaportea dute, eta kalean **abkhaziera** eta errusiera ageri dira idatzita. ETC-prentsa

Izan ere, errusiera da, **abkhazierarekin** batera, errepublikako hizkuntza ofiziala, eta abkhaziarren %90ek Errusiako pasaportea dute. ETC-prentsa

Euskara-**abkhaziera** hiztegiaren egilea dugu abkhaziar ikerlari hau. ETC-prentsa

Ipar-mendebaldeko Kaukasoko hizkuntzek (zirkasiera, **abkhaziera**, abaza eta ubikhera zena), ez dute ahaide hurbilik. ETC-prentsa

---

ablatibo *iz* gramatikan, izenaren morfologiaren kasuetako bat, batez ere nondikakoa adierazten duena.

Ablatiboan *-etatik* zein *-etarik* eta *-gandik* zein *-ganik* onartu zen: etxeetatik zein etxeetarik eta lagunengandik zein lagunenganik laurak dira Batua. Koldo Zuazo

Ablatiboko *-ti* zein *-tikan* eta *-gandikan,* motibatiboko *-gati* zein *-gatikan,* eta partitiboko *-rikan*: [...]. Koldo Zuazo

Bigarrena [...] **ablatibozko** gerundiotik dator, eta gerundioa aldaezina da. Isabel Arrigain

ablaut *iz* erradikaleko bokal aldaketa.

Horretan ere alemana, bere **ablautekin**, eta frantsesa desberdinak dira. Isabel Arrigain

---

ablazio 1 *iz* erauzketa, eskuarki klitoriaz mintzatuz.

Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Fondo Unicefek datu bat gogorarazi nahi izan du dataren harira: urtean hiru milioi neskatori **ablazioa** egiten diete Afrikan eta Yemenen. Berria - Gaiak

Ablazioa Egipton, Sudanen, Eritrean, Etiopian, Malin eta Ginean dago errotuen. Berria - Gaiak

Ablazioaren kontrako kanpaina abiatu dute Gambian. Berria - Gaiak

Frantziako zirujau batek klitoria berregiten die **ablazioaren** biktimei, Ministro-edo batek klitorisaren **ablazioarekin** alderatu zuen burka edo buruzapiarena. Berria - Gaiak

Erlijio monoteista handietako emakume fededunek (gizonezko fededun zorrotzen emazte, alaba, errain, arreba eta amak, alegia) etorkizunean ez dituzte egingo orain bezain plater luze, korapilatsu eta neketsuak (**ablazioaren** kide, prostituzioari ihes egiteko amarruak izan diren heinean). Edorta Agirre

Ablazio kasuak zigortzea ere onartu dute lege egitasmoan. Berria - Euskal Herria

2 ***klitoriaren ablazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Egia ala ez, ezin ahaztu Kurdistango hainbat bailaratan ohiko praktika dela, egun ere, **klitoriaren ablazioa**. ETC-prentsa

Klitoriaren ablazioa, lana, eztula eta boterea ere oso zaharrak dira, eta zer? ETC-literatura, saiakera

Horren barruan, **klitoriaren ablazioa**, aluaren ezpainen ablazioa, infibulazioa (aluaren ezpainen ablazioa eta bulbaren itxiera) eta klitoriaren kauterizazioa, eskarifikazioa, ebakidura eta puntzioa bereizten dira. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ablazioaren biktima** (4); **ablazioaren kontrako** (5)

---

ablepsia *iz* erabateko itsutasuna.

Ablepsiak jotako tipo bat ezagutzen dut -medikuntza legala ikasi behar horrelako hitzak jakiteko, nahi duenak jo dezala hiztegira-, eta morroiak *muito* hitza idazten den bezala ahoskatzen du, *mu-i-to*, *u* hori sudurretik esan gabe. Karlos Zabala

---

abluzio *iz* garbitzea; uraren bidez garbitzeko errituala.

Gogoratzen zenetik aurreneko aldiz, ez zuen **abluziorik** egin. Koro Navarro

Ikuzte edo **abluzio** errirtual eta higieniko horiek egin-eta, mendi Gozora (Mons Gaudii) bozkario osoz iragaiten ziren. Piarres Aintziart

---

abnegazio *iz* nork bere burua ukatzea; pairakortasuna.

Abnegazioa, bihotz-zabaltasuna une erabakigarrietan, ausardia eta buruargitasuna. Jose Morales

Ezinbestean, haien **abnegazioaz** eta ongiarekiko atxikimendu zintzoaz ohartuko nintzatekeen eta, azkenean, aintzat hartuko nituzkeen haien aholu baliagarri eta zuhurrak. Jose Morales

Geure kontzientzia goratuz, azken txinparta batean, erabateko sakrifizio eta **abnegazioaren** gailur sublimetara. Jon Alonso

---

abobedatu *izond* bobeda forma duena.

Gero haitzulo bat agertuko da, eta eskaileretan behera eginez gero, gela **abobedatu** baterako sarbidea topatuko duzu. Patxi Zubizarreta

---

abogadu ik **abokatu**.

---

abokat ik **abokatu**.

---

abokatu *(ETCn **34.015** agerraldi; orobat **abokat** g.er.)* 1 *iz* zuzenbidean lizentzaduna.

Loialistek 1989. urtean hil zuten **abokatu** baten aurka David Trimblek ostiralean eginiko salaketak ezinegona sortu du Irlandako iparraldean. Berria - Mundua

Epailearen erabakia Azkarateren **abokatu** Jone Goirizelaiak aurkeztutako helegite bati erantzutera dator. Berria - Euskal Herria

Apartamentua ere gela bikoitzekoa da, eta **abokatu** bat daukat imigrazioko paperak egiteko. Javi Cillero

Gregorio Mayoral langabean zegoen, eta gizon zintzoa izanik familiak ezaguna zuen **abokatu** batek gaztigatu zion bazegoela lanpostu bat urtean 1ø750 pezeta emongo ziona, kenketagaz. Koldo Izagirre

Hamarrak aldean, Mona ni ikustera etorri zen Holbrook izeneko **abokatu** batekin. Fernando Rey

Goiz bakar batean bi gran duke, gobernadore nagusia, hiru **abokatu** eta Opera Inperialeko zuzendaria bisitatu zituen poliziaren eragozpen horietaz keja egiteko. Matías Múgica

"Akabo, Oturuntza", pentsatu nuen (eta gogoa hegalari, Jean Etxepare medikuaren Miarritzeko bazkari hartara, sendagile, botikari, irakasle, **abokatu** eta ingeniariak mahai inguruan, gaia dutela... "Amodioa"). Iñigo Aranbarri

Bat magistratu egin zen, bigarrena **abokatu**, eta hirugarrena Kasr Al-Aini ospitaleko sendagile. Patxi Zubizarreta

Raimundo Llul eta Peynafortekoa ezagunagoak diren arren, azken hau **abokatu** eta letratuen zaindaria gainera, halere, euskaldun izandako gure lurralde inguru horietan Fiteroko gure nafarrak du jaiera handien. Pello Zabala

Horrexegatik ordaindu zion konfiantzazko **abokatu** bati iraganeko enpresaren eta berak aurrerantzean gidatuko zuenaren arteko mugaren sinbolo nahi zuen otoitza idatz ziezaion. Bego Montorio

Zernahi ere dela, **abokatu** batek erranen lizuke hatsapen hori ez dagokiola auziari. Jon Muñoz

Abokatu izateko ari zen ikasten, eta gomendioz ateratzen zen onik; baina ez zuen ezertarako konturik hartzen ikasketez. Josu Zabaleta

Abokatu izan edo torero, berdin-berdin, lehengo lepotik burua horrek ere, amaitu du esaten. Eider Rodriguez

Hiri erakargarria da Madril; ez **abokatu** batentzat, mitologia irakurri eta biolina jotzen duen batentzat baizik. Unai Elorriaga

-Hortaz, **abokatu** batena da -erabaki zuen, zirt-zart, Léak. Jon Muñoz

Horregatik, bada: ez dut ezer jakin nahi esker txarreko lana eta esker oneko plazerra nahasten dituen **abokatu** batekin. Anjel Lertxundi

Hogeita bi urteko espetxe zigorra jarri zidaten, baina aitak **abokatu** bat hartu zuen eta hark hamaika urtera jaitsi zuen. Pako Aristi

Garbi zegoen **abokatu** hura ez zela auzilari bat, bezero ugari eta onak eduki behar zituen bulego dotore hura izateko, non eta Donostiako erdialdean gainera, hiriburuko merkataritza-gunerik garrantzitsuenean. Migel Angel Mintegi

Egun batzuk geroago **abokatu** bat etorri da, bata zuriz, bertako langileak ez direnek daukaten debekuari burla eginda. Agurtzane Juanena

Probintziako **abokatu**, diputatu eta katu handienetakoak. Hasier Etxeberria

Handik bost egunera, Ananias apaiz nagusia Zesareara jaitsi zen, zahar batzuekin eta Tertulo zeritzan **abokatu** batekin. Eta Pauloren aurkako salakuntza azaldu zioten gobernariari. Elizen arteko biblia

2 (izenondoekin)

Ez zion etxeko bere partea Orso Nero anaiari saldu nahi, nahiz eta dirurik ez izan pagatzeko ez tribunalari eta haren morroiei, ezta defendatu beharrean kondenatzen utzi eta gero dirua nahi zuten **abokatu** ustelei. Pello Lizarralde

Fiskalak eta **abokatu** akusatzaileen andanak ere elkarri egin zioten murmurio belarrira nire hitzak entzun bezain azkar. Hasier Etxeberria

Ramon Rumaya, Urduñako **abokatu** kriminalista, makilakadaka hil zuten Larrinagako kartzelan. Jokin Urain

Ez bakarrik psikologo, epaile eta agintari espainolen aurkakoa: Metxak pikutara bidaltzen du orobat euskal presoen kolektiboaren **abokatu** posibilista, pikutara pedagogia, tentua, kalkulua. Markos Zapiain

Egoki janzten ziren, egoki mugitzen ziren eta egoki hitz egiten zuten: auzi txiki eta ezdeusez arduratzen diren **abokatu** txukunen itxura penagarria zerien etxetto txuri hartan lan egiten zuten guztiei. Alberto Ladron Arana

Hori eztabaidagarria liteke, **abokatu** on batekin... - nire jurista arimak nabarmenarazi du bere burua mahaian, aspaldiko partez. Harkaitz Cano

AEBek **abokatu** zibil bat sartzen utzi dute estraineko aldiz Guantanamora . Berria - Mundua

Charles Swift **abokatu** militarrak bere gaineko karguak kentzea eskatu zuen. Berria - Mundua

Bere 46 urteko aita John Noxon **abokatu** ezaguna zen eta bi urte gazteago zen bere ama, Bluestocking Club ohorezkoaren bazkide. Gotzon Garate

Mike Bidart **abokatu** euskaldun eta euskaltzalea. Pello Salaburu

Amatxi beti izan zen bere alabatxoaren **abokatu** hoberena. Ramuntxo Etxeberri

Portugaldar jatorriko **abokatu** aberats baten sasiko semea izanik, bere amarekin atzerrian eman zuen haurtzaroaren eta nerabezaroaren zati handi bat. Lopez de Arana

Mikelen lanbideak berak, ONG horren bulego ziztrinean, ez dirudi **abokatu** ospetsu baten helmugarik gorena. Iban Zaldua

Epaiketaren aurrekoetan **abokatu** defentsore izango duena ezagutu du, hara, Mundakakoa da! Faxista, baina herrikoa. Edorta Jimenez

Notario, **abokatu** gailenak, epaitegietan oso goiko mailetara iritsiko zirenak, merkatariak, lurjabeak [...] Askoren artean

Harrapazka aberasten ari diren HBko **abokatu** sozialista horiek zer esanen ote diote orduan beren hamaika bezero (petxero) jatorri. Patziku Perurena

Bera **abokatu** eskas eta pragmatiko bat baino ez zen, hiltzaileak kartzelatik salbatzen dituen horietako bat, eta ez zuen, jada, Rosa ezagutu zuen garaiko magiarik ez irudimenik: akabaturik zegoen. Aritz Gorrotxategi

Eta, Aurrezki Kutxarako oposizioetan huts egin bazuen ere, handik hilabetera lortu zuen lanpostua, idazkari gisa, **abokatu** laboralista batzuen bulegoan. Joan Mari Irigoien

Abokatu gazte eta langile batentzat, agian? Aitor Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

>00SaiR01¬83<- **Abokatu** talde baten bulegoa zen, Ortega y Gasset kalean.

Lekurik onena da, otzaran **abokatu** karrera ikasteko ohitura zatarra hartu duten ziegakideak liburuetatik urruntzeko bide ematen duelako ongi narraturiko jazoera batek. Koldo Izagirre

Gure aitonak, bere bizitzako azken urteetan, politika utzi eta berriz **abokatu** lanetan aritu zen; baina arratsaldeko bostak arte egiten zuen lo, eta bezeroak etortzean esaten zuen: Fernando Rey

Luis Batui **abokatu** ikasketak amaitzen ari zen; bi asignatura falta zitzaizkion, eta bulego batean ari zen praktikak egiten. Joxemari Iturralde

Zure **abokatu** bulegoa gaizki joango litzateke nire eskuetan balego, porrot egingo luke. Karlos Zabala

Abokatu eta legegizon leinu baten ondokoa zen Ezponda. Aingeru Epaltza

Makina bat telefono dei eginda, konpondu zuten azkenean auzia; **abokatu** kontuak hasitakoan, seguru asko. Xabier Montoia

Besteak beste, bat egitearen eta **abokatu** sare zabal bat sortzearen garrantzia aipatu zituzten. Berria - Mundua

4 ***abokatu defendatzaile*** ik **defentsari 3**.

Presoak berak eskaturik eta, Felipe II.aren baimenarekin, Doktor Nafarra izendatu zuten orduan haren **abokatu defendatzaile**. Piarres Xarriton

Bai, badakit orain emaztea eta **abokatu defendatzaileak** haren asmo ona eta apaltasuna goraipatzen hasiko direla, baina ezin izango dute haren errugabetasuna frogatu. Patxi Zubizarreta

Ihes egin gurako haiei epaiketa 1937ko martxoaren 16a eta 18a bitartean egin zitzaien, **abokatu defendatzaileen** artean Kosme Duñabeitia, lehena, izan zelarik. Edorta Jimenez

Akusatuek ez dute inolako **abokatu defendatzailerik** behar izan. Berria - Euskal Herria

5 ***abokatu egin***

Saiatua eta aplikatua zen hura andereño, harro puntua zeukana enpresarioa, on-ona zenak enpresa familiarrari jarraitu zion, serioak zirenak negozio-gizon eta **abokatu eginik** daude, imajinatiboak, berriz, kazetari, antzerkilari. Pako Aristi

Eskola oso garrantzitsua zen aitarentzat; ni epaile edo **abokatu egitea** nahi zuen. Juan Kruz Igerabide

Zaharrena **abokatu egin** zuan eta bestea mediku. Eskarne Mujika

Susana eta Victoria Zaragozako unibertsitatera zihoazen mediku ikastera; Joseba eta Adrian, Bilbora, bata **abokatu egitera** eta bestea ingeniari. Bernardo Atxaga

6 ***abokatu-laguntzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Nola edo hala bukatu, eta lanean hasi zen, hasieran **abokatu-laguntzaile** gisa. ETC-prentsa

Auzitegien praktika hori abokatuen bulegoetan egiten zen, batez ere, **abokatu laguntzaile**-lanak eginez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bukatzeko, azkeneko ilaran, entzuleei bizkarra emanez, fiskala eta haren lau **abokatu laguntzaileak** daude, eta defentsaren abokatua, aurreneko asteetan laguntzaile batekin egongo dena. ETC-literatura, saiakera

Jaso nuen bai, onartzen dut, **abokatu-laguntzailearen** bidez gaiari buruzko zure mezu bat, edo gertakizunarekin erlazionatua zena behintzat. ETC-literatura, saiakera

Ez **abokatu-laguntzaile** gisa, baizik eta administrari-zeregin arruntetan. ETC-literatura, saiakera

Izaskun Leturia idazkaria zortziak aldera, eta Xixo Sagasta **abokatu laguntzailea** hogei minutu geroago. ETC-literatura, saiakera

7 ***abokatu langela*** *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Plaka batek adierazten zuen, Martin Galartzaren negozioaz gain, bertan notario bat, **abokatu langela** pare bat eta aholkulariza enpresa bat zeudela, besteak beste. ETC-literatura, saiakera

Bruff jaunaren **abokatu-langelan** bazkaldu genuen. ETC-literatura, saiakera

Alaba Parisen zegoen moda ikasketak egiten eta semeak Londreseko Clifford Chance **abokatu langelan** ziharduen. ETC-literatura, saiakera

Ohikoagoa da babeslea pertsona juridikoa izatea, horrenbestez, gehienetan enpresa bat, baina elkarte zibil batek ere bete lezake eginkizun hori (esaterako, **abokatu-langela** batek). ETC-zientzia, zuzenbidea

Mossack Fonseca **abokatu langelatik** 11 milioi agiri baino gehiago filtratu dituzte, eta nazioarteko 140 agintariri lotutako sozietateak aurkitu dituzte zerga paradisuetan. ETC-prentsa

Fortunak ezkutatzeko erabiltzen diren sozietate sare konplexuak azaleratu ditu Panamako **abokatu langela** batetik filtratu den barne dokumentazioak. ETC-prentsa

1827ko maiatzean, Dickens Ellis & Blackmore prokuradoreen **abokatu-langelan** hasi zen abokatu-laguntzaile lanetan eta, gerora, epaiketetako takigrafo egin zen. ETC-

entziklopedia

Aitak, gizon autoritarioa eta zorrotza, semea jaio bezain pronto abokatua izango zela eta bere **abokatu-langela** jarauntsiko zuela erabaki zuen. ETC-entziklopedia

8 *deabruaren abokatu*

-Deabruaren abokatuaren itxurak egiten ari zara? -irribarre egin zidan berriz ere. Jon Muñoz

Eta zirikatzaile samar ere arituko gara sarritan, bihurri samar, besteenak ez eze, geure koloreak ere kritikatuz, **deabruaren abokatuaren** antzera. Iñaki Heras

9 *Estatuaren abokatu*

Halaber, Espainiako **Estatuaren abokatuak** nahiz Fiskaltzak AG legez kanpo uzteko eskaera egitean emandako arrazoien artean, erakunde legalekin ÐLAB sindikatuarekin, adibidez,Þ edo ekintza legalekin izandako harremanak ahotan hartzea zilegi ote den esan zuen, auzitan jarriz. Berria - Harian

Estatuaren abokatuak lehen sententzia horren aurka helegitea jarri zuen Espainiako Auzitegi Gorenean, eta argudiotzat zera erabili zuen: Santaliestran egindakoa Itoitzen eta Esan egin zutela aurretik. Edurne Elizondo

Euskal Herriko alderdi abertzaleek, HZk eta Elkarri-k arbuiatu egin dute Espainiako Gobernuak **Estatuaren Abokatuaren** bitartez HZren kontra aurkeztu duen inpugnazioa, eta errolda eskura ez izateko egin duen eskaera. Berria - Euskal Herria

Fiskaltzaren eta **Estatuaren Abokatuaren** inpugnazioak ikertzen hasi da Auzitegi Gorena. Berria - Euskal Herria

10 *lan arloko abokatu* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Gilek **lan-arloko abokatu** eta greba-bitartekari ateratzen zuen bizimodua, baina Newark hiriko udalaren aholkulari ere bazebilen hirurogeietako lehenbiziko urteetan. ETC-literatura, saiakera

Atochako sarraskian, 1977ko urtarrilaren 24an, Espainiako Alderdi Komunistako eta Langile Komisioak Langile Komisioetako (CCOO) bost **lan arloko abokatu** hil zituzten eta lau zauritu. ETC-entziklopedia

Lan arloko abokatua eta Laneko Jazarpen Moralaren Euskal Behatokiko kidea da Domingo Arizmendi. ETC-prentsa

Madrilen dudan **lan arloko abokatuak** baimena ukatutakoen makina bat kasu izan ditu. ETC-prentsa

Lan arloko abokatuen mugimenduak zeregin garrantzitsua izan zuen frankismoaren kontrako borrokan. ETC-prentsa

11 *ofiziozko abokatu*

Baina **ofiziozko abokatuak** uko egin zion defentsari, Basañezek konfiantzako abokatua izateko eskubidea zuela argudiatuta. Berria - Euskal Herria

Hala, ordu biak aldera **ofiziozko abokatua** eskatu zuen Guardia Zibilak, Agirreri deklarazioa hartu behar ziotelako. Berria - Harian

Demagun, epaitegi batean **ofiziozko abokatu** euskaldunak badaude, beraz, inportantea da herritarrek zerbitzu hori eskatzea. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

abokatu bat (25); **abokatu batek** (12); **abokatu batekin** (6); **abokatu baten** (16); **abokatu bezala** (7); **abokatu bulego** (7); **abokatu defendatzailea** (8); **abokatu defendatzaileak** (7); **abokatu demokraten** (6); **abokatu eta** (49); **abokatu euskaldunek** (7); **abokatu euskaldunen** (16); **abokatu gisa** (19); **abokatu iñ abokatu iñ abokatu izan** (9); **abokatu jone** (13); **abokatu jone goirizelaiak** (10); **abokatu jose** (22); **abokatu jose luis** (19); **abokatu talde** (10); **abokatua da** (23); **abokatua ere** (11); **abokatua eta** (34); **abokatua izan** (9); **abokatua izango** (7); **abokatua izateko** (8); **abokatua izateko eskubidea** (6); **abokatua zen** (10); **abokatuak adierazi** (11); **abokatuak atzo** (23); **abokatuak aurkeztutako** (9); **abokatuak azaldu** (16); **abokatuak azaldu zuenez** (11); **abokatuak berriari** (8); **abokatuak egindako** (8); **abokatuak ere** (15); **abokatuak esan** (13); **abokatuak esan zuen** (6); **abokatuak eta** (41); **abokatuak eta fiskaltzak** (8); **abokatuak ez** (9); **abokatuak helegitea** (14); **abokatuak helegitea aurkeztu** (6); **abokatuak jakinarazi** (7); **abokatuak jarritako** (7); **abokatuak salaketa** (6); **adierazi zuen abokatuak** (6); **ainhoa baglietto abokatuak** (6); **aitor ibero abokatuak** (6); **arantza zulueta abokatuak** (13); **baglietto abokatuak** (6); **beaumont abokatuak** (8); **bere abokatuak** (18); **beste abokatu** (7); **bi abokatu** (13); **defentsa abokatuak** (13); **defentsako abokatuak** (14); **defentsaren abokatuak** (6); **dio abokatuak** (12); **dira abokatuak** (6); **du abokatuak** (22); **edo abokatu** (6); **elosua abokatuak** (19); **enparantza abokatuak** (10); **esan zuen abokatuak** (17); **estatuaren abokatuak** (33); **estatuaren abokatuak eta** (7); **estatuko abokatuak** (18); **estatuko abokatuak eta** (6); **eta abokatu** (36); **eta abokatua** (8); **eta abokatuak** (32); **eta estatuaren abokatuak** (7); **europako abokatu** (8); **europako abokatu demokraten** (6); **finucane abokatu** (7); **gazteen abokatuak** (6); **goirizelaia abokatuak** (23); **haren abokatu** (11); **haren abokatuak** (24); **iñ ibero abokatuak** (6); **igo** (10); **igo iruin abokatuak** (11); **igo iruinek** (7); **iruin abokatuak** (13); **itoizko koordinakundeko abokatu** (11); **jon enparantza abokatuak** (10); **jone goirizelaia abokatuak** (20); **koordinakundeko abokatu** (18); **koordinakundeko abokatu jose** (16); **koordinakundeko abokatuak** (10); **mari elosua abokatuak** (11); **nire abokatuak** (7); **ofiziozko abokatua** (7); **presoen abokatu** (6); **salatu zuen abokatuak** (7); **x abokatua** (10); **zion abokatuak** (16); **zuen abokatu** (8); **zuen abokatuak** (87); **zulueta abokatuak** (14)

abokatuarekin hitz (8); **abokatuaren arabera** (25); **abokatuaren esanetan** (17); **abokatuaren galderei** (9); **abokatuaren hitzetan** (6); **abokatuaren ustez** (22); **abokatuek atzo** (8); **abokatuek aurkeztutako** (11); **abokatuek dei** (6); **abokatuek eta** (10); **abokatuek ez** (13); **abokatuek jarritako** (12); **abokatuen arabera** (6); **abokatuen bazkuneko** (9); **abokatuen elkargoak** (8); **abokatuen elkargoko** (12); **abokatuen esanetan** (6); **abokatuen kontseilu** (8); **abokatuen kontseiluko** (6); **abokatuen ustez** (14); **abokatuetako batek** (7); **abokaturik gabe** (8); **auzipetuen abokatuek** (10); **bere abokatuaren** (6); **bere abokatuari** (8); **bere abokatuek** (8); **bere abokatuen** (6); **bizkaiko abokatuen** (35); **bizkaiko abokatuen bazkuneko** (8); **defentsa abokatuek** (9); **defentsako abokatuaren** (8); **defentsako abokatuek** (38); **defentsako abokatuen** (7); **diote abokatuek** (9); **dute abokatuek** (29); **eaeko abokatuen** (19); **espainiako abokatuen** (10); **espainiako abokatuen kontseilu** (6); **estatuko abokatuaren** (9); **eta abokatuaren** (7); **eta abokatuari** (8); **eta abokatuek** (17); **eta abokatuen** (15); **euren abokatuek** (6); **gipuzkoako abokatuen** (10); **haren abokatuek** (9); **konfiantzako abokatuarekin** (6); **madrilgo abokatuen** (6); **uriaren abokatuek** (8); **zuten abokatuek** (19)

---

abokatugai *iz* abokatu ikasketak egiten ari den pertsona.

Magoari hor erakusten duen neska ederra ez duela ezpataz pasatzen esateko adina adimen dauka, hori esan duen **abokatugaiak**. Koldo Izagirre

---

abokatugo *iz* abokatutza.

Gaztigu horrek hainbestetaraino lotsatu zuen non **abokatugoa** egitea (lehen eta azken aldikotz) damutu baitzitzaion, baina haren izpirituak ez zuen amore eman. Piarres Xarriton

---

abokatutxo *iz adkor* abokatua.

-Abokatutxoa ongi saretu -xuxurlatu zion, aukera izan zuen batean-. Aingeru Epaltza

---

abokatutza *iz* abokatuaren lanbidea.

Abokatutza etxeko epeletik higitu gabe ikas zezakeen arren, hiri handira joateko nahikeria agertu zuen. Aingeru Epaltza

Abokatutza ikasita gero, Azpilgo Kaskoan hartu zuen egoitza, eta handik gutxira egin zuten alkate. Joan Mari Irigoien

Abokatutzako estudioak bukatuta, negozioen munduan sartu zen, banku batean. Joan Mari Irigoien

Abokatutzako, kazetaritzako eta politikagintzako pertsona ezagunek osatu dute batik bat batzordea. Berria - Harian

Kondenatu eta kendu ziotenetik doktore titulua eta **abokatutzan** jarduteko eskubidea -xantaia egin baitzion bezero bati-, beraren eta besteen errentetatik bizi zen. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abokatutzaren kontseilu (3)

---

abolitu, aboli(tu), abolitzen **1** du *ad* agindu, ohitura edo kideko bat legearen bidez ezeztatu.

"Turkiarren aitak" sultanari agintea kendu, kalifagoa **abolitu** eta Turkiako Errepublika laiko eta modernoa sortu zuen. Jon Arretxe

Elkarteak haur-hilketaren eta basakeriaren salaketa irauli, eta esklabotza **abolitzeko** beste auzi bat bihurtu zuen. Anton Garikano

Txirotasuna **abolitzeko** prestatutako planen kopuruak hura jasaten dutenen erreformatzaileena gehi hartaz deus ez dakiten filosofoena berdintzen du. Xabier Olarra

Zerk eraman zaitu prostituzioa **abolitzearen** aldeko talde batean parte hartzera? Berria - Euskal Herria

Deklaratzen du ezen probintzia, printzerri, herrialde, kantonamendu, hiribildu eta biztanle-komunitateen pribilegio partikular guztiak, diruzkoak nahiz beste edozein eratakoak, **abolituta** gelditzen direla errekurtsorik gabe, eta frantses guztien Zuzenbide Komunean izango direla batuak. Andres Urrutia

2 irud/hed

Mitoa **abolitu** du, erlijioa pribatizatu, eta gizartea laikoa dela aldarrikatu. Joxerra Garzia

Denek disimuloan begiratzen genion jatetxeko erloju gelditari eta iruditzen zitzaigun denbora **abolitua** zela. Matías Múgica

---

abolizio **1** *iz* agindu, ohitura edo kideko bat legearen bidez ezeztatzea.

Gaurko Euskal Herria ulertzeko, ezinbestekoa da Foruen **abolizioa** eta industrializazioa ezagutzea. Berria - Harian

Zelibatoak lehentasuna zuen lekuetan, ezin ohorerik izan ezkontzarentzat, eta zergen errentariak zigorren **abolizioaren** bitartez hainbeste abantailari uko egitera behartu ahal izan zirenez geroztik, bistan da askoz errazagoa izan zela sariak kentzea. Iñaki Iñurrieta

Prostituzioaren **abolizioa** eskatu dute hainbat emakume taldek. Berria - Euskal Herria

Bortxak "ezer onik" ez dakarrelako tesiak, esplika biezagu gaiztotzat al dauzkan, ala nola etorritakotzat dauzkan, egungo Estatuak eta erakunde estatal guztiak, Justiziaren erakundea horien artean, eta demokrazia, Giza Eskubideen Deklarazioa, edo esklaberiaren **abolizioa**, etc. Joxe Azurmendi

Ildo horretan, "monarkiaren **abolizioa**" ere eskatu zuen. Berria - Euskal Herria

Gatazkaren jatorri politikoa azaltzeko, 1939ko urriaren 25era jo zuen, foruen lehen **abolizio** legea indarrean sartu zen egunera. Berria - Harian

2 *foruen abolizio*

Gaurko Euskal Herria ulertzeko, ezinbestekoa da **Foruen abolizioa** eta industrializazioa ezagutzea. Berria - Harian

Berriro gerra, berriro porrota, berriro bake faltsua, **Foruen abolizioa**; euskal gizartearen barne urraketa sakona, diktadura militarra, errepublika apur bat eta gerra berriro, emigratuak milaka berriro, eta presoak, fusilatuak... Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **foruen abolizioa** (3)

---

abolizionismo *iz* zerbaiten abolizioaren alde egiten duen doktrina.

Zergatik ez du inork esaten hurrengo biak **abolizionismo** eta absentismo direla? Berria - Kultura

---

abolizionista *izond* abolizionismoaren aldekoa.

Egoera horrek ez ditu nire konbikzio **abolizionistak** ezkutatzen. Berria - Euskal Herria

Eskuzabaltasun Henry Ward Beecher (1813-87) elizgizona, egunkari-editorea eta **abolizionista** zen, AB-k maiz eraso egin ziona. Xabier Olarra

---

abominable *izond* guztiz gaitzesgarria, higuingarria.

1951. urtean Everestera egindako Shipton espedizioaren ondoren, sarri erabili ohi izan dira elurretako gizon gogaikarria edo elurretako gizon **abominablea** bezalako izenak izaki ezezagun hau izendatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bai ote elurretako mamu **abominablerik**? Karlos Linazasoro

---

abonamendu **1** *iz* zerbitzu edo publikazio bat epe jakin batean behin hartzeko eskubidea ematen duen agiria.

Hortarako, hartu **abonamendua** (5000 pezeta edo 200 libera urteko) helbide huntara idatziz: [...]. Herria

Martxoaren 17an eta 18an Hernanin (Gipuzkoa) egingo den jaialdi erraldoirako sarrerak eta **abonamenduak** salgai daude dagoeneko Euskal Herri osoko hainbat tokitan. Berria - Kultura

Egun hartan hasi zen **abonamenduak** berritzeko kanpaina. Berria - Kirola

Sarrerak eta **abonamenduak** 120 eta 54 euro bitartekoak Baluarteren leihatilan edo www.baluarte.com helbidean eros daitezke. Berria - Kultura

Aspaldian ez bagara zinera joan, ez da, bera zabaltzen ari den bezala, **abonamendua** ordaintzen ez-eta kendu egin digutelako. Arantxa Iturbe

Abonamenduen berritzea ekainaren 10an hasiko da, eta ekainaren 21etik aurrera hartuko dituzte eskaera berriak. Berria - Kultura

Abonamenduak garestitzeak, aldiz, 25.500 laguni eragiten zien. Berria - Kirola

Eta **abonamenduen** igoera ez da une egokian eta era egokian egin. Berria - Kirola

Sail Ofizialeko **abonamenduak** Kursaaleko leihatiletan eskuratu ahal izango dira. Berria - Kultura

Donostian, urtarrilaren 13an hasiko da Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren (EOS) **abonamenduko** egitarau berria. Berria - Kultura

Abonamenduko hemezortzi kontzertuk osatuko dute BOSen egitaraua. Berria - Kultura

Lehen Mailako **abonamendurik** merkeenak zituen Realak orain arte, Getaferen ondoren. Geuk itzuli ditugu **abonamendu**-txartelak. Berria - Kirola

Abonamendu kopuru osoaren mugan. Berria - Kultura

Beherapen **abonamendurik** ez dago aurten. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abonamenduak berritzeko** (2); **abonamenduen garestitzea** (5); **abonamenduen igoera** (2); **sarrerak eta abonamenduak** (3)

---

abonatu *iz* abonamendua ordaindu duen pertsona.

Ni Bizkaiko talde handienaren **abonatua** naiz, eta Real Madril datorrenean txartelaren erdia ordaindu behar izaten dut, eta ez da inor kexatzen. Berria - Kirola

Esatea nuke arrazoia haren telefono zenbakia aurkitu ezina izan zela, ez baitzetorren **abonatuen** aurkibidean, baina ez litzateke egia izango. Ramon Saizarbitoria

Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eskaintzen duen kontzertu denboraldirako gaur egungo **abonatu** kopurua inoizko handiena da. Berria - Kultura

---

abondantzia *iz* ugaritasuna, oparotasuna.

Emigranteak berekin ekartzen zuen nahikariak lagundurik gauza asko egin zen, eta hemen egin diren **abondantziek** munduko ainitz lekuetan bere laguntza ekarri dute gisa batera edo beste, Europako gerla ilun heien denboran zonbat haragi juan ote da, gerlak xehatu lekuetako jendeen janaritako. Herria

---

abondo *adlag* ugari.

Bazen lan-mahai lauzatu bat, beirontziteria gutxi bat, erreakziogaiak zeuzkaten hogei bat flasko, hautsa ugari, amarauna ugari, argia eskas eta hotza **abondo**. Juan Garzia

---

abono ik **abonu**[1].

---

abonu[1] *(orobat **abono** g.er.)* **1** *iz* abonamendua.

Espainiako Koparako 300 **abonu** baino gehiago lortzea espero du klubak. Berria - Kirola

Musika Hamabostaldiaren Lagunek, datorren ostirala izango dute euren **abonuak** eta sarrerak eskatu ahal izateko azkeneko eguna. Berria - Kultura

Baskoniako zaleak **abonoen** prezioa igotzean eta Kopa ikusteko **abonoak** bukatzen direnean bakarrik kexatzen dira. Berria - Kirola

Abonuen salmenta amaitutzat eman ondoren, Donostiako Musika Hamabostaldiak sarrera solteak jarriko ditu salgai datorren astelehenean. Berria - Kultura

Larunbatero, ilea labanaz txukuntzen zioten, lepoa zuri-zuri izateko, Deux-Ecus kaleko ile apaintzaile batenean, non hileko **abonua** baitzuen. Karlos Zabala

Jaialdira 15.000 lagun joatea espero dute antolatzaileek, eta dagoeneko jarri dituzte hiru egunetarako **abonuak** salgai. Berria - Kultura

Euskadiko Orkestrak programa interesgarria aurkeztu zuen aurtengo bere azkeneko **abonuko** emanaldian. Berria - Kultura

Abonu berri garestiena 505 eurokoa izango da, merkeena aldiz 142 eurokoa. Berria - Kirola

Urteroko **abonu**-programarekin batean esku-paper bat eman ohi digute Euskadiko Orkestrakoek, eta bertan, urte horretako kontzertuen egitarauarekin eta bakoitzeko bakarlariarekin batera, orkestra osatzen duten musikari guztien zerrenda dator, jotzen duten instrumentuaren arabera sailkatuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikusleek ez dute sarrera edo **abonu** aldaketarik egin beharko, atzoko erositakoekin joan ahal izango dira Kursaaleko auditoriora. Berria - Kultura

Aurtengo **abonu** denboraldiko azkenengo kontzertua ematen ari da Euskadiko Orkestra Sinfonikoa egunotan. Berria - Kultura

Errenteriako Andra Mari abesbatzak EOSekin 'Stabat Mater' eskainiko du **abonu** zikloan. Berria - Kultura

Abonu kuota 0,55 euro igoko du gaur Telefonicak. Berria - Ekonomia

Baskoniak %12 garestitu ditu bazkide **abonuak**. Berria - Kirola

2 ***abonu agiri*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Ondoren, Gizarte Segurantzako Erregistroan **abonu agiria** aurkeztu dugu. ETC-prentsa

---

abonu[2] *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **ongarri** agertzen da) iz* ongarria.

Jendea animatu zuen hutsik utzitako baratzeak lantzera -"herriko etxe guztietan landatu behar da etxerako", esaten zuen beti-, eta haziak eta **abonu** zakuak beste herrietan baino errazago lortu zituen, Iruñeko ordezkaritzan zituen harremanei esker. Alberto Barandiaren

---

abordaia *(orobat **abordaje**) iz* abordatzea.

Kanoiek huts eginez gero,eskuko iskiluekin egin beharko ote genion aurre erasoaldi bati; **abordaiari**. Edorta Jimenez

Piratak **abordaia** prestatzeko agindu eta maiteari, badaezpada, sotoan gordetzeko esan zion. Martin Anso

Abordaia izugarri odoltsua izan zen. Martin Anso

Hori da lortu ez duguna, bata bestearen barnean urtzea, desesperoaren piraten amorruz, bereiztu gaituzten espazio zital horien **abordajean** larrua eta ohorea uztea. Patziku Perurena

---

abordaje ik **abordaia**.

---

abordatu, aborda(tu), abordatzen **1** du *ad* enbarkazio batek beste bat jo, eskuarki nahita eta borroka egiteko.

Handik urte batzuetara, berriro ere Hendaia parean, susmagarria iruditu zitzaion ontzi bat **abordatu** zuen Joanesek. Martin Anso

Mocco ontzi merkatari aberatsa **abordatzean**, ez zuten aurkitu zerez neurtu kapitainaren urre-hauts parteak. Juan Garzia

Gizajale haien bisaje basatiak eta hagin zorrotzak ikustea nahikoa irudikatzeko hurrengo eszenak nolakoak izango ziren: beren txalupek inguratuko gintuzten, ausartenek **abordatuko** zuten gurea, matxetea eskuan. Jon Alonso

Itsasontziren bat **abordatzen** bazuen, iraingarria iruditzen zitzaion arropa berarekin sartzea itsasontzi horretara. Julen Gabiria

Txalupek albo batetik **abordatu** dute gabarra. Karlos Zabala

2 irud/hed

Kostanjoglo gehiago hurbildu zen Txitxikovengana, eta, gauzak hobeto ulerrarazteko, **abordatu** egin zuen, edo, beste hitz batzuekin esateko, frakaren botoi-zuloan sartu zion hatza-. Jose Morales

Plana landuta edo oso pentsatuta eduki ez arren, ez zen oso zaila izan Robertoren ontzi galdua **abordatzea**. Sonia Gonzalez

Nola ari gara **abordatzen** indarkeriaren gure arazoa? Joxe Azurmendi

---

abordatze *iz* enbarkazio batek beste bat jotzea, eskuarki nahita eta borroka egiteko.

Hemen, **abordatzea** saihestu behar, han, igarobide batera sartu behar. Karlos Zabala

Plana landuta edo oso pentsatuta eduki ez arren, ez zen oso zaila izan Robertoren ontzi galdua **abordatzea**. Sonia Gonzalez

---

aborigen *(orobat **aborigeno** g.er. eta **aborijen** g.er.)* **1** *iz* bizi den lurraldean jaiotako pertsona.

Nahiz eta Australiako biztanleen %2,1 bakarrik izan indigena, espetxean dauden %20 **aborigenak** dira. Berria - Mundua

Australiako **aborigenen** hizkuntzaren batean. Edorta Jimenez

Aborigenen kultura tradizionalean, dantza da muina, sendagai sakratu halako bat. Berria - Kultura

Redfern auzoan **aborigen** asko bizi dira, eta biztanleak kalera atera ziren hilketa horren aurrean protesta egitera. Berria - Mundua

Queensland estatuko (Australia) **Aborigenen** Babeserako 1897ko Legeak zioen indigenen soldataren zatirik handiena Gobernuak gorde behar zuela, eta lanaldiaren bukaeran jaso ahal izango zutela **aborigenek**. Berria - Gaiak

Poliziak, aldiz, gezurtatu egin zuen Gail Hicker, **aborigen** gaztearen amak egindako salaketa. Berria - Mundua

Ni denetaz jabetu nintzen liburu-dendako teilatuko leihoaren zirrikitutik barrurantz labaindu nintzelako, denen oharkabean, sugandilen moduan, Australian basomutil ibili nintzenean bertako **aborigen** tribu batekoei ikasitako teknika berezi bati esker. Jon Alonso

Garaiz barneratu helduen bortizkeriaren aurrean mututu nintzen, eta indio edo **aborigenen** maneran geroztik halaxe segitzen dut. Itxaro Borda

Gazte **aborigenak** sutan jarri ziren Hickeyren hilketa gertatu eta gero, tren geltoki bati su eman zioten eta poliziei aurre egin zieten botila eta molotov koktelelekin, Redfernen. Joan den larunbatean Australiako Sydney hiriko Redfern auzoan, 17 urteko Thomas Hickey gazte **aborigena** hil zen, eta heriotzak Australiak azken hamarkadotan izan dituen istilurik larrienak eragin ditu. Berria - Mundua

2 *australiar aborigen*

Kartzelan hildako **australiar aborigena** 26 urteko Cameron Doomage da. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aborigenen eta** (5); **australiako aborigenen** (4); **eta aborigenen** (4); **uhartetarren eta aborigenen** (3)

---

aborigeno ik **aborigen**.

---

aborijen ik **aborigen**.

---

abornada *iz* oldarra.

Zeren **abornada** bortitz batean, eurotariko zeinek iraun behar du, heriotzari Herioren hortzetatik bertatik ihes eginik? Xabier Amuriza

---

aborritu *izond* higuindua, astio dena.

Hori erran zaudan Luzaidar zahar batek, orroituz usoaren etsai **aborritua** zela belatza, zoinek petik goiti iganez bere atzapar dorpetan beretzen du hegazti gaixoa, paparotik. Herria

---

abortarazi, abortaraz(i), abortarazten **1** du *ad* abortatzera behartu.

Herrian **abortaraztea** pentsatu zuen, baina nabarmenegia izango zela konturatu zen. Bego Montorio

Horrek erran nahi du neska baten esperantzetan dela eta **abortaraziko** duela. Herria

2 irud/hed

Jendeak geroz eta eskuratze-ahalmen handiagoa du eta horrek elitearen sormena **abortarazi** egin du, hein batean. Edorta Agirre

---

abortatu, aborta(tu), abortatzen **1** du *ad* haurdunaldia nahita edo nahigabe eten.

Urtero hamar milioi emakumek **abortatzen** dute Asian. Berria - Gaiak

Haurdun nengoela eta **abortatu** nahi nuela esana nien gutunez. Joseba Urteaga

Abortatu behar duten emakumeen beldurra, eta **abortatzen** laguntzeagatik atxiloturiko emakumearen beldurra. Berria - Kultura

Aurreko urtean emakume gazte dibortziatu batek kontatu zidan Estrasburgoko sendagile batek **abortatzen** lagundu ziola. Joseba Urteaga

Nafarroan, **abortatzen** duten 10 emakumeetatik bederatzik klinika pribatuetara jotzen dute. Berria - Euskal Herria

Kartzela-zigorra eta isuna ezarriko zaie 1) edozein abortu-praktikaren egileari; 2) praktika horietan eragile edo laguntzaile izandako sendagile, emagin, farmazeutiko eta abarri; 3) bere buruari abortua eragindako emakumeari edo **abortatzea** onartu duenari; 4) norbait **abortatzera** bultzatu duenari edo propaganda antikontzeptiboa egin duenari. Joseba Urteaga

Iparraldean, berriz, legezkoa da haurdunaldiaren lehen 12 asteetan **abortatzea**. Berria - Euskal Herria

Portugalen **abortatzea** ez da legezkoa, eta, ondorioz, milaka legez kanpoko abortu egiten dira urtero, milaka emakumeren bizia arriskuan jarriz. Berria - Gaiak

Gerora, Aintzanek kontatu zionez, haurdun geratu zen bat-batean eta Londresera joan omen zen **abortatzera**. Joxemari Iturralde

J.B.k kontatu zuen kale-kantoiko janari-dendako ugazabandreak esan ziola **abortatzeko** ez zegoela jada Parisera joan beharrik, auzoan emakume bat zegoelako egiteagatik hirurehun libera soilik kobratzen zuena. Joseba Urteaga

Sare publikoan **abortatzeko** bideak ixtea egotzi die UPNri eta CDNri. Berria - Euskal Herria

Hala, bada, **abortatzeko** pilulak blokeatu egiten du progesteronaren eragina, eta, horrenbestez, arrautza ezin da garatu. Luis Elberdin

Horren harira, abortua legezkoa egin eta emakumeei baldintza egokietan **abortatzeko** modua eskaintzea exijitzen zuen. Berria - Gaiak

2 (zer osagaiarekin)

Batez ere umeki arrak **abortatzen** ditu amak estresaren eraginez . Berria - Gaiak

3 (adizlagunekin)

Ezin zidala "moralki" dirua utzi ezkutuan **abortatzeko**. Joseba Urteaga

Egun batean emakumeek libreki **abortatzeko** eskubidea izango zutela imajinatzeko erabateko ezintasunean. Joseba Urteaga

Hitz horiexek aurkitu izan ditut geroztik klandestinoki **abortatu** zuten emakumeen kontakizunetan. Joseba Urteaga

Medikazio bidez **abortatzea**. Luis Elberdin

4 (era burutua izenondo gisa)

Errusian K.o. 1825ean zertutako Abenduko Iraultza **abortatua**. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko Kristandadea berriro anarkian erori zen Karlomagnoren Erromatar Inperio berri **abortatuaren** porrotaren ondoren. Iñaki Mendiguren

5 (era burutua izenondo gisa, irud/hed)

Bai, egia da eleberri **abortatuak** idatzi ditudala. Berria - Kultura

6 *abortatzeko eskubide*

Izan ere, informazioa eskaini, anatomia azaldu, ernalkuntzaren aurkako metodoak erakutsi, **abortatzeko eskubidea** aldarrikatu, edozenbat fantasia deskribatu, eta mila postura ezberdin marraztu ondoren, Donatienek ez du bere lana amaitu gura mendeku pertsonal txiki bat burutu gabe. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Horretaz gain, beste hainbat gai ere eztabaidatu ditugu: kultura indigena, bioaniztasuna, teknologia berriak, **abortatzeko eskubidea** eta giza eskubideen gaia, besteak beste. Berria - Gaiak

Horretaz gain, eskubide eta betebeharren atalean, CiUk eutanasiarako eta **abortatzeko eskubideak** aipatzen dituzten artikuluak ezabatzeko eskatu izana ere salatu zuen ERCk. Berria - Mundua

Egun batean emakumeek libreki **abortatzeko eskubidea** izango zutela imajinatzeko erabateko ezintasunean. Joseba Urteaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abortatu ahal (4); **abortatu ahal izango** (3); **abortatu behar** (3); **abortatu egin** (6); **abortatu nahi** (7); **abortatu zuten** (3); **abortatutako umekien** (3); **abortatzea ez** (4); **abortatzea ez da** (3); **abortatzeko aukera** (5); **abortatzeko eskubidea** (7); **abortatzeko eskubidearen** (3); **abortatzeko pilula** (5); **abortatzen dute** (3); **abortatzen duten** (4); **batek abortatu** (3); **eta abortatzeko** (3); **nire abortatzeko** (5)

---

abortatze *iz* haurdunaldia nahita edo nahigabe etetea.

Zenbait kasutan **abortatzea** irtenbide bat izan daitekeela dio Portugalgo web ofizial batek. Berria - Gaiak

Nire ama bera ere, ez zuen horren aspaldi, bosgarren hilera arteraino egon zen negar batean, **abortatzea** erabaki zuen arte. Joxan Elosegi

Bainan aitamek ekografia bat egin-arazten dute eta nexka bat balin bada **abortatzea** galdatzen dute. Herria

Kafetegi batean izandako elkarrizketa batean esan nion haurdun nengoela eta ahal nuen guztia egingo nuela **abortatzeagatik**. Joseba Urteaga

Baina, bestalde, **abortatzea** ez da egokitzat hartzen (adibidez, kasu honetan: fetuaren tamainagatik emakumearen bihotza estutzen duenean emakumearen bizitza arriskuan jarriz). Askoren artean

---

aborto ik **abortu**.

---

abortu *(orobat **aborto** g.er.)* **1** *iz* abortatzea, umea galtzea edo galaraztea, haurdunaldia nahita edo nahigabe etetea.

Abortua delitua da Argentinan, eta, hala, urtero ehunka emakume hiltzen dira legez kanpo gaizki egindako **abortuen** ondorioz. Berria - Gaiak

Nahiz eta nik **abortuaren** esperientzia hau bizi izan dudan modua -klandestinitatea- iraganeko historiaren aztarna izan, ez zait arrazoi nahikoa iruditzen ezkutuan uzteko. Joseba Urteaga

Abortu bat izan nuela jakinarazi nion itzulinguru askorekin. Joseba Urteaga

Gero **abortua** gertatu arte itxoitea besterik ez zegoen. Joseba Urteaga

Baziren hilekoa atzeratzeko injekzio batzuk ere, baina **abortua** eragiten zutelakoan nago. Karlos Zabala

Aristotelesek **abortua** gomendatzen zuen; eta aberriarenganako adorez eta maitasunez betetako errepublikar zahar haiek ez zuten nazio modernoetan aurkitzen den erruki indibidual hau ezagutzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haurdunaldietan kalkulatzen da heren bat, 80 milioi urtean, ez dela borondatezkoa, eta egiten diren **abortuetan** badira 20 bat milioi urtero baldintza txarretan egiten direnak, eta horrek 78.000 heriotza ekartzen du. Pello Salaburu

Hondakinek airea kutsatzen dute, eta, ondorioz, **abortuen**, malformazioen eta gaixotasunen ehunekoa altua da. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gero jakin nuen boulevard de l'Ysereko sendagileak agindu zidana **abortu** naturalak ekiditeko medikamentu bat zela. Joseba Urteaga

Informazio praktikoak aurkitzea espero nuen, baina artikuluek **"abortu** kriminalaren" ondorioez besterik ez zuten hitz egiten, eta horiek ez zitzaizkidan batere interesatzen. Joseba Urteaga

Berezko **abortuekin** bezala da. Luis Elberdin

Ustezko **abortu** haren ondotik berriro gelditu zen hilekoa eta beren horretan iraun zuten betiko sintomek, goseak, nazkek, mardultasunek. Joxan Elosegi

3 (hitz elkartuetan)

Kartzela-zigorra eta isuna ezarriko zaie 1) edozein **abortu**-praktikaren egileari; 2) praktika horietan eragile edo laguntzaile izandako sendagile, emagin, farmazeutiko eta abarri; 3) [...]. Joseba Urteaga

Ez zen bada azaldu nire **abortu**-mahaian kateaz lotu zen tipoa! Joxan Elosegi

4 ***abortu-eragile*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Historiaren hasierako mendea omen zenean, grekoek sexurako akuilu zela zioten, baita **abortu-eragile** ere ordea, emakumea antzutzen omen du eta. ETC-prentsa

Horren adierazle garbi dira azkenaldian burututako manifestaldi ultra kontserbadoreak, klinika **abortu-eragile** pribatuen kriminalizazioa edo kasuak aipatzen hasita, Nafarroako emakumeek abortatzeko dituzten ezintasun eta mugak. ETC-prentsa

Eta, I. mendean Diskoridesek De materia medica lanean jaso zuenez, **abortu-eragilea** ere bada mirra. ETC-prentsa

Efektu antikontzeptibo hori **abortu-eragiletzat** hartzen da haren planteamendu morala dela-eta baztertzen duten gizarte-sektoreetan (RU 486 bada pilula **abortu-eragile** bat, haurdunaldia eteten duena lehenengo egunetan). ETC-zientzia, zuzenbidea

Legez kanpoko abortua: legeak esaten duenaren kontra egiten denean. Arriskutsuak izan ohi dira egoera honetan egindakoak (higiene falta, mediku prestakuntza egokia ez duten **abortu-eragileak** ...). ETC-entziklopedia

5 ***abortu selektibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Abortu selektiboak zigortuko ditu Indiak hilaren 16tik aurrera. ETC-prentsa

Abortu selektiboen ondorioz ez ziren jaio batzuk, eta beste batzuk jaio eta gero hil zituzten, neskak zirelako. ETC-prentsa

Baina emakumeen aldeko militanteon aburuz, oraingo **abortu selektiboak** nesken kontrako bazterketa ziklo oso baten barruan kokatu behar dira Indian. ETC-prentsa

Abortu selektiboak eta haurren abandonuak nabarmen ugaritu dira? neskak, batez ere?. ETC-prentsa

Eta, nahiz sexua aukeratzea legez kanpokoa den orain dela hogei urtez geroztik, milioi askotako negozio ederra da neskatilen **abortu selektiboa**. ETC-prentsa

Gobernuak neurriak hartu ditu **abortu selektiboa** galarazteko: orain ere Txinan ez da legezkoa haurra jaio baino lehen haren sexua gurasoei jakinaraztea. ETC-prentsa

6 ***berezko abortu***

Berezko abortuekin bezala da. Luis Elberdin

7 ***eragindako abortu***

Bost seme-alabaren ama da gaur egun Susan Axon, eta, aditzera eman duenez, orain urte batzuk haur bat galdu zuen, propio **eragindako abortu** baten bidez. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abortu bat (3); **abortu baten** (3); **abortu egiten dira** (4); **abortu naturalak** (3); **abortua egiten** (4); **abortua eta** (5); **abortua legezkoa** (4); **abortua legeztatzeko** (3); **abortuak egiteagatik** (3); **abortuaren alde** (3); **abortuaren aldeko** (7); **abortuaren eguneko** (3); **abortuaren gaineko** (5); **abortuaren inguruko** (3); **abortuaren kontrako** (6); **abortuari buruz** (3); **abortuari buruzko** (4); **da abortua** (4); **egindako abortu** (5); **eta abortua** (7); **eta abortuaren** (3); **gaizki egindako abortuen** (3)

---

abortugile *iz* abortuak egiten dituen pertsona.

Paperezko orri bat hartu nuen eta Cardinet pasabidea marraztu nuen **abortugilearen** etxetik jaitsi nintzenean ikusi nuen bezala, horma garaiak elkarren artetik oso gertu eta argia sartzen uzten zuen zirrikitu bat hondoan. Joseba Urteaga

Gaur egun pertsona-trafikanteak jazartzen dituzte eta jende guztiak haien existentzia deitoratzen du, duela hogeita hamar urte **abortugileena** deitoratzen zuen bezala. Joseba Urteaga

Lehen **abortugileen** artean bezala, immigrante-trafikanteen artean zintzoak ere izango dira seguruenik. Joseba Urteaga

abortutegi *iz* abortuak egiten diren tokia.

Bakun, Estatuaren **abortutegien** asmoa azaldu zidan sendagilea ere begibakarra zen. Monika Etxebarria

---

abortza *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi) iz* itsasontzi arinen azpialdean izaten den ohol bertikala, alboko egonkortasuna lortze aldera. ik **aurtza**.

Lemazainak belaren **abortzari** begiratzen zion, bere kolkorako bezala txistu eginez; eta beste hotsik ez zen entzuten, itsasoak ontziaren masailen kontra eta saihetsetan egiten zuen ziri-zaraz gain. ETC-literatura, saiakera

Baleak jarraitzeko uretan azkar mugitu behar zuten, eta txalupa horiek ez zuten **abortzarik**. ETC-prentsa

Aurrenekoan, plastikozko txalupa bat ikusi eta gerturatzean, **abortza** apurtu eta 40 lagun uretara erori zirelako. ETC-prentsa

Itsasontzi zaharra da: **abortzak** ezartzeko manera izugarri fisikoa da. ETC-prentsa

Belaontzi batzuek, gilaren ordez, **abortza** daukate. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

abots ik **ahots**.

---

aboztu ik **abuztu**.

---

abrakadabra *iz* hitz kabalistikoa, ondorio magikoak egozten zaizkiona.

Eta esan zuen gero: **"Abrakadabra** !". Joan Mari Irigoien

Quirrellen **abrakadabrari** buruzko zerbait ere esan dio. Iñaki Mendiguren

---

abrasio *(corpusean ez dago; ETCn **69** agerraldi)* **1** *iz* urradura, urratzea; fenomeno geologikoa.

Geologian, **abrasioa** edo urradura arroken eta higakinen arteko marruskadurak sortutako higadura-mota bat da. ETC-entziklopedia

Zuntz ikusgarriak mikroskopikoak diren milioika zuntz txikitxoak osatzen dituzte, **abrasioen** bidez eta beste prozesu batzuen bitartez askatu daitezkeenak. Hau da, besteak beste, gaixotasunak eratzearen arrazoia. ETC-entziklopedia

Gehienetan injektatzekoak izaten dira, baina mingainaren alde banatako **abrasio** txiki-txiki batzuek pentsarazten digute edan egin zuela. ETC-literatura, saiakera

Uraldi txiki nahiz handiek herrestan eramanak, fenomeno berri batzuen indarpean agitzen dira objektuak, hala nola **abrasioa** eta meteorizazioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kornearen **abrasioa** begiko minaren kausarik ohikoena da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Latexezko, poliesterrezko edo epoxizko aglomeragarria, harri zatitxoz nahastua; produktu kimikoekiko eta **abrasioarekiko** bereziki erresistentea den terrazo-estaldura bat osatzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***abrasio plataforma*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Amildegitik erauzitako harriek, itsasoak eragindako mugimenduz haien artean igurtziz **abrasio plataforma** zizelkatzen dute. ETC-entziklopedia

Bestalde, itsasoak itsasbazterretako labarrak higatuko ditu **abrasio plataformak** eta haietatik ere hondarra sortuz. ETC-entziklopedia

Higadura honek **abrasio plataformak** sortzen ditu (adb. Zumaiako Itzurun eta Algorri hondartzetan). ETC-entziklopedia

---

abre ik **abere**.

---

abrekeri ik **aberekeria**.

---

abrekeria ik **aberekeria**.

---

abreki ik **abereki**.

---

abrigatu, abriga(tu), abrigatzen du *ad* gorputza arropa berogarriren batez babestu.

Betazaletaraino **abrigaturiko** lau guardia zibil armatuk altoa ematen ziotela. Harkaitz Cano

Ongi jan eta edan ondoren kalera atera zirenean hain pozik zeuden ze mahuka-hutsik eta **abrigatu** gabe ibili baitziren. Mikel Hernandez Abaitua

---

abrigo *(ETCn **58** agerraldi; orobat **abrigu** ETCn **14** agerraldi;) iz* berokia.

Gureen antzekoak ziren **abriguak** jantzi zituzten. Xabier Mendiguren Elizegi

Bisoizko **abrigu** bat erosi dut. Xabier Mendiguren Elizegi

-Hiru **abrigo** lapurtu nituen nik -esan zuen Luvinok-, horregatik sartu ninduten kartzelara. Unai Elorriaga

Sukaldea omen zen egongela, guretzat oso harrigarria, sukaldean zituztela **abriguak** eskegita, eta horregatik zeukatela olio frijituaren usaina. Mikel Hernandez Abaitua

Lehenengo galdera zenbat balio duen izaten da, katanarruz egindako **abrigoekin** bezala. Hasier Etxeberria

Aulki gainean gelditu den zure **abrigoa**. Eider Rodriguez

Lehenengo galdera zenbat balio duen izaten da, katanarruz egindako **abrigoekin** bezala. Hasier Etxeberria

Batzuk kamioi handietan pasatzen ziren bide bazterrak astinduz, beste batzuk oinez neguko **abriguekin**, lokatz artetik nekez. Joseba Sarrionandia

---

abrigu ik **abrigo**.

---

abrikot *iz* albertxikoa, mertxika.

Abrikotek marmol tonuak hartzen zituzten goroldioaren gainean, eta distira egiten zuten ilunabarreko eguzki izpiek neska beltzaranen garondoko ile txiki kizkurretan egiten duten legez. Karlos Zabala

Alboko saltokia atso mozkorti zikin batena zen, eta han sagarrak zimurrak ziren, udareak titi hustuak bezain zintzilikariak, **abrikotek** sorgin kolore hori zitala zuten, gorpuena bezalakoa. Karlos Zabala

Camillaren adiskideak hura mirestera biltzen ziren, satinezko etzaulki **abrikot** -kolorearen inguruan. Mirentxu Larrañaga

---

abrikotondo *iz* abrikotak ematen dituen arbola.

Gero, lehen ura zegoen tokietan fruitu arbolak sartu zituzten, lehortutako ubide bakoitzean klase bana, sagarrondoak, madariondoak, mertxikondoak, **abrikotondoak**, gereziondoak, limoiondoak eta laranjondoak, nekazarien pozerako, lur emankorra eta osasungarria baitzen oso. Felipe Juaristi

Hamar aldiz gutxienez handitu duk bazter horretan, hortxe, **abrikotondotik** hurbil. Karlos Zabala

---

absenta *iz* asentsio-belarraz egiten den edaria.

Asentzio-belarra osagai nagusi duela, zenbait belarrek -aingeru-belarraren sustraia eta abar- zaporea eta kolore berdea ematen zizkion gradu askoko likoreari deitzen zaio **absenta**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Parisen, aipatutako urte horietan, bizitzeko, janzteko eta portatzeko modu ezohizkoak -**absenta** botilak astintzea horien artean- zituzten artista-jendeei la bohème deitu zitzaien -halanolako loturaren bat eginez Bohemiako biztanleekin? J.M. Olaizola "Txiliku"

Absenta -koktela, New Orleans-en bezala. Lopez de Arana

- **Absenta** -usaina dago -esan zuen Ellenek-. Lopez de Arana

---

absente *(ETCn **311** agerraldi; orobat **ausente** ETCn **134** agerraldi) izond/iz* pertsonez edo gauzez mintzatuz, egon behar lukeen tokian ez dagoena. ik **ausente**.

Gero, amaren senar **absentea** izan zen. Anton Garikano

Aita **ausentearen** partez, Balantsunen bost ondokoek lau aita kanoniko zeuzkaten: ez ziren galduko. Itxaro Borda

Orain, hur-azal koloreko arrotz honen lagun **absentea** zen. Anton Garikano

Ezkontza, familiaren gobernua, seme-alaben egoera, tutoretzak, egoitzaren kontuak, **absenteen** eskubideak, [...] horiek dira Kode Zibil baten objekturik beharrenak. Berria - Gaiak

Lanon helburua da literaturan zehar **ausente** egon den emakumearen presentzia haragitzea. Berria - Kultura

Bizitza **ausente** dago, ez gara munduan bizi. Joseba Sarrionandia

Gertatu ez balitz gehixeago izatea elektroiak antielektroiak baino eta quarkak antiquarkak baino, partikula arruntak, materiaren oinarri-oinarrian daudenak, **absente** leudeke gaur egun unibertsotik. Juan Garzia

Aitak sekulako disgustua zuen, Montserekin hautsi nuelako, eta amak ere bai, nik uste, nahiz eta hura gero eta isilago egoten zen, bizitzan egon arren ez balego bezala, gero eta **ausenteago**. Joan Mari Irigoien

Absenteek, batik bat arrazoi publikoak tartean direla, egoera horretan badiraute, badute eskubide propiorik legeen babeserako. Andres Urrutia

Estatu demokratiko batean, non, nahi izanez gero, guztiak presente egon daitezkeen legeak ezartzen direnean, **ausenteek** sinetsi egin behar diete presenteei. Esteban Antxustegi

---

absentismo 1 *iz* egon behar den eginbidean edo tokian, eskuarki lanean edo eskolan, maiz ez egotea.

Baina zergatik ez du inork esaten hurrengo biak abolizionismo eta **absentismo** direla? Berria - Kultura

Pandemia kasuan, lan **absentismoa**, mundu osoan, %30ekoa litzatekeela kalkulatu du, eta Barne Produktu Gordinaren galera, berriz, %2koa. Berria - Gaiak

Kaleratutako langileak **"absentismoan** trebatutako profesionalak" zirela aipatu zuen. Berria - Ekonomia

Soldata igoera produktibitatearen gorakadari eta **absentismoaren** jaitsierari uztartzea eta antzinakotasuna izoztea edo ezabatzea. Berria - Ekonomia

2 ***eskola absentismo*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Eskola absentismoa, lagunartean eta modu informalean txikarra egitea, sasieskola egitea, piper egitea, eskola-ihesi egitea eta txerritan ibiltzea ere deitua, ikasleek nahita egindako eskola huts egitea da, derrigorrezko hezkuntzaren baitan, gaixotasun batengatik edo justifikatutako beste arrazoi batengandik eta gehienetan gurasoen baimenik gabe. ETC-entziklopedia

Pozik gaude emaitza onak izaten ari delako, hiru urtean dezente jaitsi da **eskola-absentismoa** eta familien eta eskolaren arteko harremana ere asko hobetu da.. ETC-prentsa

Formakuntzari dagokionez, ijitoen %97 eskoletan daude: ez dago **eskola absentismorik**, eta hori arrakasta da. ETC-prentsa

---

absentzia *(ETCn **828** agerraldi; orobat **ausentzia** ETCn **358** agerraldi) iz* ez egotea, ez izatea; norbait edo zerbait ez dagoen denbora. ik **ausentzia**.

Absentzia da munduan gauzarik txarrena. Lander Garro

Lagun hilarena da batzuetan **absentzia**, alboan falta den maitearena bestetan, edo baita jainko laguntzaile batena ere. Berria - Kultura

Jainkoak ematen ez badit, gabe izango naiz beraren nahiagatik, ez baitit eman eskatu diodanik, horrela onartuz gabezia eta **absentzia**. Joan Mari Lekuona

Ezerez hori, **absentzia** hori izan daiteke, baina, sorkuntzarako pizgarri, poesia izan daiteke ezerezaren aurrean egindako oihu etsitua. Berria - Kultura

Eta huts hori da, hain zuzen, "gauzaren **absentzia"** hori, Mallarmé-k dioen moduan, hizkuntzari halako arintasuna eta halako indarra ematen diona. Juan Garzia

Behin eta berriro aipatzen du gorputz desiratuaren **absentzia**. Joseba Zulaika

Gauza bakoitza mintzo zen haien **absentziaz**, hutsunea eta bakardadea areagotuz. Joxan Elosegi

Ekainaren bostean zure aurkako epaia eman zen zure **absentzian**. Antton Olano

Urruti eta iraganean diren pertsonen **absentzian** berean haragitu nahi nituzke, hitzaren bidez, maite ditudanak. Piarres Aintziart

Puntu nagusia ikuspegi honetan zera da: hegemoniak beti osotasunaren **absentzia** seinalatzen duela, aurre egin behar zaion kontingentzia, bete behar den zuloa, sendatu behar den etena, gainditu behar den negatiboa. Joseba Zulaika

Itzul zaitezte, itzuli, anai Frantziskoren **absentziagatik** Ordena nahastua, banandua eta zatitzeko zorian baitago. Askoren artean

Desiraren jokoan sarturik gaude hemen azkenik, desira duguna beti **absentzia** baita, beti galdutako zerbait. Joseba Zulaika

Beharbada hura zen haren boterearen giltzetako bat, **absentziak** tentuz dosifikatzen jakitea. Iñaki Iñurrieta

Horrela filosofikoki orientaturiko obratze batekin topo egiten dugu; baina, halaber, egia da obratze horrek berekin erakutsirik ageri den eta **absentziaren** era gabeziazkoaren formapean agertzen denaren esplizitazioa eskatzen duela. Piarres Xarriton

Presentzia batek nabarmendutako **absentzia**! Jon Muñoz

Absentziaren presentzia mingarria, maite izateko azken forma hori. Imanol Zurutuza

Luzetsi egiten dio ostalariak zaldun mozkortien ostatuko egonaldiari, hala nola Madama Butterflyk luzesten dion senarraren **absentziari**. Imanol Zurutuza

Ahaideek norbaiten heriotzaren ordaina hartu nahi eta hura agertzen bazen, ez zen borrokarik; gauza bera, baldin eta, **absentzia** nabarmenen batengatik, egintza ezinezkoa bazen. Iñaki Iñurrieta

Absentzia hutsak ez du egoitza hausten. Andres Urrutia

Girotze poetiko horren baitan, esanguratsua da hilotzaren **absentzia** fisikoa, bizirik irtendakoengan erabat presente dagoen arren. Berria - Kultura

Hutsune, **absentzia** eta asaldu uneekin batean. Joxan Elosegi

Bere emazte zenarekin batera entzundako musika **absentziaren** gozagarri bihurtzen saiatzen da alarguna, oroitzapenak lagun. Imanol Zurutuza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
absentzia baten (3); **eta absentzia** (3)

---

abside 1 *iz* elizetan, aldare nagusiaren atzeko zati biribil antzekoa.

Okamendiko Villafranca agertu zait, bai eta ere, hor berean, bide bazterrean, eskuinetarik, San Felices kaperaren **absidea**. Piarres Aintziart

Hurbildutakoan, horma-begi batzuk ikusten dira murruan, eta hiru edo lau ojiba, hamabosgarren mendekoak, **absidean**. Koldo Izagirre

Abside erdizirkular baten modukoa zuen sabaia, eta gailur-gailurrean gorantz egiten zuen tximinia zabal batetik inoiz ikusi dudan argi zurienak erdi itsutu ninduen. Anjel Lertxundi

Arantzazuko fatxada, bertako apostoluak eta Pietatea Oteizarenak dira; ateak Txillidarenak; beirateak Eulaterenak; **absideko** pinturak Muñozenak eta kriptako freskoak, zur landu erre eta polikromatuaz egina, Nestor Basterretxearenak. Jon Alonso

Bururik gabeko gorpua prozesio batean bezala eraman zuten San Pietro in Montoriora, non Estigma Sakratuen fraideek **abside** aldameneko kapera batean hobiratu zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jatorrizko tenpluaren **absidearen** ikuspegi ederra. Berria - Kultura

Absidearen alboetan, urrezko zutabe batzuk zeuden sabaitik zintzilik, zutoin zilarrezkoak zeuden zoruan xut. Anjel Lertxundi

1180an eraikitako Wormseko katedralak bi **abside** dituelako egin ahal zuten ospakizun modu hau. Askoren artean

Pascual de Larak **absiderako** sortu zuen margolanaren maketa. Berria - Kultura

2 *abside zuzen* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Ekialdeko muturrean, gaur egungo presbiterioaren atzean sakristia dago, tenplu gotikoa zaharraren **abside zuzena** zena. ETC-entziklopedia

Nabea bera baino estuagoko **abside zuzena** du, puntadun kanoi erdiko bi bobeda zatiz estalia, bi bobeda zatien artean arku faxoi handia daukala, puntaduna hau ere, zutabe lana egiten duten barruko kontra-hormetan bermatua. ETC-entziklopedia

---

absintio

1 *absintio belar* *(Artemisa absinthium) iz* belar landare iraunkorra, zeinaren hosto eta infloreszentziak likore bat egiteko erabiltzen baitira.

Eta haragiaren bozkarioa zuten eta haragiaren bozkarioak bizi zituen beltz haiek guztiak... eta bozkario hark kanelaren gozoa zuen eta ez zuen **absintio belarraren** minik. Joan Mari Irigoien

---

absolbazino ik **absoluzio**.

---

absolbiarazi, absolbiaraz(i), absolbiarazten du *ad* absolbitzera behartu.

San Antonio Milanen ari zela predikua ematen, eta Lisboan agertu zela, non **absolbiarazi** baitzuen bere aita zor ez zuen eta leporatzen zioten zor batetik. Jon Alonso

---

absolbitu, absolbi, absolbitzen du *ad* epaiketa batean, epaileak akusatua errugabea dela adierazi.

Aste honetan bertan hiru euskal preso **absolbitu** dituen beste epai bat ere izan da, baina kasu horretan helegiterik ez duela aurkeztuko esan du Fiskaltzak. Berria - Euskal Herria

Ez zuen astirik ukan konprenitzeko -eta neu ere ez nintzen garaiz jabetu- etsaiaren jukutria zela, Agirre'tar Nikola garaitzeko modu bakarra **absolbitzea** zela, bere ekintzak gudari batenak ez baina txoralda batenak izan balira moduan. Koldo Izagirre

Epaiak delitua preskribituta zegoelako **absolbitu** zuen. Berria - Euskal Herria

Olaia Kastresanaren hiletan egindako adierazpenekin ekintza terroristak "goretsi" zituela ebatzi du Ruiz Piñeiro epaileak; Salaberria **absolbitu** egin du, hiletan egotea eta hilkutxa eramatea delitua ez direlako. Berria - Euskal Herria

Jo dezagun bi gizon daudela, errugabe edo errudun, berdin dio; sendoa eta adoretsua **absolbitu** egingo dute, ahula eta lotsatia kondenatu, argudiaketa zehatz honen harian: Nik, epaileak, delitu jakin baten errudun jo behar zintuztedan; zuk, adoretsuak, oinazea jasaten jakin duzu, horregatik **absolbitu** egiten zaitut; zuk, ahulak, amore eman duzu, horregatik kondenatu egiten zaitut. Juan Martin Elexpuru

Salaturen bat **absolbitua** izan ondoren [...], salatzailearen beste ahaide batek ezin zuen borroka eskatu; bestela auziak ez baitziren inoiz bukatuko. Iñaki Iñurrieta

Banandu eta bigarrengoz ezkondu direnek, bestalde, ez dute **absolbituak** izateko eskubiderik Vatikanoaren arabera, ez behintzat "ezkontzaren bananduezintasunarekiko kontraesanean bizitzeari uko egin bitartean". Berria - Gaiak

Zubiagaren ustez, egoera politikoak izango du eraginik epaian, baina zail ikusten du epaitu guztiak **absolbitzea**. Berria - Harian

Historiak **absolbituko** nau. Berria - Kultura

Parisko Fiskaltzak helegitea jarri zuen, Helegite Auzitegiak asteazkenean Jean Castela eta Vincent Andriuzzi preso abertzaleak Claude Erignac prefeta 1998an hiltzeaz **absolbitu** ondotik. Berria - Mundua

Sebas Etxaniz euskal presoa astelehenean epaitutako ustezko delituengatik **absolbitu** dute, Askatasuna erakundeak jakinarazi zuenez. Berria - Euskal Herria

Gaur **absolbitu** arren, beste batzuetan zigortuko naute. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
absolbitu ditu (3); **absolbitu dute** (3); **absolbitu egin** (21); **absolbitu egin ditu** (3); **absolbitu egin du** (9); **absolbitu egin dute** (3); **eta absolbitu** (3)

---

absolbizio *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* absoluzioa.

Eta konfesatzen bada ere, hainbeste eta hain ikaragarriak dira haren bekatuak non gauza bera gertatuko zaion, inongo apezek ez fraidek ez diola **absolbiziorik** emanen, ezin eman ere, eta, hortaz, **absolbiziorik** gabe, arroiletara botako dute orduan ere. ETC-literatura, saiakera

Negu Gorriak lehendabizi zigortu egin zuten, eta gero, absolbitu; baina, orduan ere, fokua lehenengo epaian jarri zen; ez **absolbizioan** . ETC-prentsa

Honetaz gain, **Absolbizio** eguna (abuztuaren azkeneko igandea) ere ospatzen da, Aralarko tenplu honen dedikazioaren oroitzapen gisa, zeinetan "barkamen osoa" irabaz baitaiteke. ETC-entziklopedia

---

absolutibo *(corpusean ez dago; ETCn **485** agerraldi) izond/iz* ergatiboa duten hizkuntzetan, aditz iragankorrarekin objektua eta aditz iragangaitzarekin subjektua adierazten dituen gramatika-kasua.

Absolutiboa hizkuntza ergatiboetan izaten den gramatika kasu bat da. **Absolutiboak** objektua (aditz iragankorrarekin) eta subjektua (aditz iragangaitzarekin) adierazten ditu. Indoeuropar hizkuntzetan izaten den nominatiboaren antzeko kasua da. ETC-entziklopedia

Beraz, hizkuntza ergatibo bat da subjektuak bereizten dituena: aditza iragangaitza bada, 0 marka du subjektuak, eta kasu marka horri **absolutiboa** deritzo; iragankorra bada, aldiz, ergatiboa (euskaraz, -k). ETC-literatura, saiakera

Ikusi berri dugun bilakaera dela eta, -e eta -a amaiera duten hitzak berdindu egin dira **absolutibo** singularrean: andre a > andrea bezala, neska a > neskea esaten da. ETC-literatura, saiakera

A bat gauza guztiak mugatzeko behar genuela begi-bistara etorri zitzaion, soinu errazena, gure morfologiaz ateratzen zitzaigun soinu naturalena, eta, hala, **absolutiboa** sortu genuen. ETC-literatura, saiakera

Epikera **absolutiboan** jokatzen da, salbuespenik ez du. ETC-prentsa

Erakuslea **absolutiboan** (hau, hori, hura edo pluralak), gehi, izan aditzaren formaren bat (maiz ezabatu litekeena), gehi, izen singular edo plurala **absolutiboan** . ETC-zientzia, zuzenbidea

Zergatik izan beharko litzateke zailagoa ergatiboaz jabetzea **absolutiboaz** edo datiboaz jabetzea baino? ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste modu batera erranik: DS ergatibo, **absolutibo** eta datiboak isil daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edo honako arau morfonologiko hauek: hots, hitza bokalez amaitzen denean **absolutibo** singular eta pluraleko atzizkia hartzen duenean izaten diren bokal-egokitzapenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

absolutismo **1** *iz* aginte guztiak estatu buruaren esku dauden gobernu era.

Absolutismoa itzuli zenean, Legeria zaharra ezarri zen berriro, eta honek atzeratu egingo du gure herrian Zuzenbide Penal Liberalaren irizpideak onartzea; hauek 1848an sartuko ziren, Eskola Klasikoaren dotrinaren eskutik. Juan Martin Elexpuru

Razionalismo argi modernoa nola oskurantismo iluna bihurtzen den, Straussen analisi polita; h. d., indibiduoaren **absolutismoa** konbentzionalismoan eta erabat erlatibismoan zelan jausten den: [...]. Joxe Azurmendi

Arlo politikoan aitasantutzaren **absolutismoa** zer izan zitekeen. Iñaki Mendiguren

Eskolari auzia sortzen zaio: alde batetik, nola eskuhartu aktiboki gaur egiazkoa den balioen krisia eta erlatibismoa "gainditzeko" eztabaidan, eta bestetik, ez izan balio batzuen **absolutismoan** interesatua den Estatuaren eskumakila hutsa. Joxe Azurmendi

Charles I.ak, Charles II.aren aitak, aginte osoa nahi zuen erregetzarentzat -beretzat, alegia- **absolutismo** gogorrena ezarriz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta konbentzimendu hori beharbada batzuek ahaztu badute ere [...] beste askok Euskal Herri berrian bide horri jarraitu dio harrezkero, erradikaltasun politikoa inolako **absolutismo** teorikorekin ezkondu gabe. Joxe Azurmendi

2 irud/hed

Grosrouvreren fitxan idatzitako lerro gutxi horien bitartez, argi ikusi zuen Ruche jaunak noraino izan zitekeen matematika, bai filosofiaren aldetik eta bai politikarenetik ere, pentsamenduaren **absolutismoaren** aurkako irakasbidea. Jon Muñoz

Doktrina ez ezik tonu **absolutistek** , alferrik itzularazi nahi baikaituzte XVIII edo XIX. mendera, ez dute suari egurra bota baino egiten. Joxe Azurmendi

Komizitateak egia biribiletatik urruntzen gaituelako (konparazio batera ongiaren eta gaizkiaren **absolutismotik** , logikaren eta estatistiken **absolutismotik**). Pello Lizarralde

Har dezagun kontuan, ordea, oraintxe aipatu dugun artikuluan Barthes ez datorrela bat Metzek kodeez erakusten duen **"absolutismoarekin"** . Josu Zabaleta

Absolutismo ilustratu ikaragarria egiten ari gara. Berria - Kultura

---

absolutista **1** *izond* absolutismoarena, absolutismoari dagokiona; absolutismoaren aldekoa.

Pentsaera **absolutista** dogmatikoak, batzuek eufemikoki "unibertsalista" deitu nahiago duten horrek. Joxe Azurmendi

Absolutistak han eta erlatibistak hemen. Joxe Azurmendi

Lipovetskyren analisia zuzena bada [...] momentu honetan espiritu erlatibista edo posmoralistaren eta espiritu fundamentalista, **absolutistaren** arteko norgehiagoka ariko ginateke ikusten mendebaleko kulturan. Joxe Azurmendi

Beraz, erregeren aurka Parlamentua defendatu zuen Cromwellek eta Charles I.ari eta erregetza **absolutista** harrotuaren jarraitzaileei aurre egin zien hitzez eta armaz bere jarraitzaile sutsuekin -*ironside* izenekoak-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hobbesek ere, lau mende geroago, lege naturalen eta giza legearen arteko batasuna erdiesteko zegoen zailtasuna aprobetxatuz, Leviathan izeneko estatu **absolutistaren** ideia eman zuen aditzera. Askoren artean

Iraultzaren bidez, Venezuela estatu ia **absolutista** izatetik herritarren esku egotera igaro dela dio Marquez-Fernandezek. Berria - Mundua

Monarkia **absolutista** zen nagusi garai hartan. Berria - Kultura

Agintea botere **absolutista** zen, eta errege-erreginek Elizarekin batera agintzen zuten, edo haren menpe. Berria - Harian

Baitziren Frantzian errefusiaturik español liberal batzuk, nahi ukan zuten haiek ere Madrilen berdin egin, erran nahi baita Fernando VII. errege **absolutista** uzkaili. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Analogiaren ikusmolde **"absolutista"** hori erlatibizatu egin behar da, beraz, lehendabizi ahal den bezainbat, analogia kontzeptua bera erabat baztertu gabe. Josu Zabaleta

De fakto herri mitiko hori **absolutistek** ez dute bereganatu nahiko; eta liberalek ez dute jakingo harekin zer egin. Joxe Azurmendi

Doña Frasquita **absolutista** porrokatua zenez, Cadiz-en Konstituzioa zen egunetan haren etxea zen liberalismoaren eta Konstituzioaren etsaien bilgunea. Joxe Azurmendi

2 ***estatu absolutista***

Hobbesek ere, lau mende geroago, lege naturalen eta giza legearen arteko batasuna erdiesteko zegoen zailtasuna aprobetxatuz, Leviathan izeneko **estatu absolutistaren** ideia eman zuen aditzera. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

absolutista zen (3)

---

absolutizatu, absolutiza(tu), absolutizatzen du *ad* absolutu bihurtu.

balio berez edo tradizionalki absoluturik aurkitzen ez badu de fakto kultura (demokratikoa) n, **absolutizatu** egiten ditu balio batzuk eta dogmatikoki bermatu, ikusten ari garen. Joxe Azurmendi

absoluto ik **absolutu**.

---

absolutu *(ETCn **7.250** agerraldi; orobat **absoluto** ETCn **1.943** agerraldi, eta **abtsolutu** ETCn **2** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **absolutu** agertzen da)* **1** *izond* berez halakoa dena, beste ezeren arabera hartzen ez dena. ant**erlatibo**. ik **atsolutu**.

Lege **absolutu** gisa jokatu beharko lukeen arau horrek, ordea, oso interpretazio desberdinak egiteko aukera ematen du. Askoren artean

Kaos **absolutua**. Sonia Gonzalez

Monarkia **absolutua** erregeak nahi duena egiten duen sistema da, betiere egiten duena asesinoen gogokoa den bitartean. Xabier Olarra

Fede **absolutu**, integral eta basa. Piarres Aintziart

Teologiako misterio bakun eta **absolutu** eta aldaezinak. Joan Mari Lekuona

Zorion hitza erabiltzeko dretxo **absolutua** daukat, nereak izan ziren ametsek ez baitzuten edozein moldetako amodioa asmatu. Piarres Aintziart

Zuk, gauza ororen erlatibotasunetik abiatuta, balio **absolutu** bat eman nahi diezu gauzen arteko erlazioei. Josu Zabaleta

Ez dira monarkia **absolutu** asko gelditzen, haien lekua gehienetan monarkia mugatuek hartu baitute, non erregeen gaiztakeriarako ahalmena (eta onerakoa) arras murriztua den. Xabier Olarra

Esperientziaren ezagutza oro baldintzen totalitate **absolutu** baten bitartez determinatua den aldetik kontsideratzen dute. Ibon Uribarri

Hasierako iraultzaile anitzen xede soila zen, Erregeren borondate **absolutu** ezin jasanaren lekuan Nazioaren "Borondate Orokorra", La Volonté Générale zeritzana, ezartzea. Piarres Xarriton

Lege zibil guztiak betetzeko obligazioa herritarrek, euren artean, Estatuari, hau da, subiranoari (gizon bakarra nahiz asanblada izan) obedientzia **absolutua** eta unibertsala agintzen dion itunetik sortzen da. Esteban Antxustegi

Herrien historiaren azpiko intrahistoria hori izan daiteke Natura (pixka bat Kant-en antzera), edo materialisten materia, edo indar **absolutu** ezezagun eta ezagutezin bat eraginkorra. Joxe Azurmendi

Kontura gaitezen ez dela errenta kontua, datuak bateratu ditugulako: toki bakoitzean produzitzen den euro bakoitzeko ehunekoa da kontuan hartu dena, ez gastu **absolutua**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ni nere buruarekilako harremanetan sartua naiz, erlatibitate **absolutu** batean, honela erratea posible balitz. Piarres Aintziart

Oinarrizko subjektibitatetik, subjektu-objektutik, adigai **absolututik** eta ideia **absolututik** abiatzen diren sistema berriak. Ibon Uribarri

Bi parametrok definitzen dute formatua: irudiaren tamaina **absolutuak** eta haren neurri nagusien tamaina erlatiboak. Josu Zabaleta

Termino **absolutuetan**, labore horien 6.250 tona hazi leudeke kutsatuta. Berria - Gaiak

Ez gaitezen datu **absolutuez** fida, kontua da joerak ikustea holako datuak ditugunean aurrean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Balio **absolutu** irmoak defendatu. Joxe Azurmendi

Liburu hori idatzi zuenean estetika psikologiko bat landu nahi zuen Worringerrek; garai hartan nagusi zen estetika arauemaileari ("artearen zientziari", artelan ideal **absolutu**, betiereko eta unibertsal batekin lotzen duen araudi bat bezala ulertuz) kontrajarri nahiz. Josu Zabaleta

Hemen herri galdeketa egiten bada eta Europaren zein munduko gainerako herrialdeen aurrean agerian geratzen bada badela gehiengo **absolutu** bat herri gisa eratzeko borondatea duena. Berria - Euskal Herria

K ikurrak tenperaturako eskala **absolutua** adierazten du (gradu Kelvin). Fernando Morillo

Espazioa eta denbora, adibidez, Kanten aurretik, edo objektu **absolutuak** ziren, hots, espazio eta denbora **absolutuak** ziren, edo gauzen arteko harremanak ziren, egoera, urrunera eta antzekoen gisa. Ibon Uribarri

Teoria horren oinarrian monogamia **absolutu** eta integrista bat dago, metafisikoa ia-ia. Xabier Mendiguren Elizegi

Arrazoimen despota **absolutua**. Joxe Azurmendi

Zeren Jainkoa (gorets bedi!), frogatu denez, "beharrezko" existentzia daukan izakia da, eta, ondorioz, beharrezko existentzia horri bakuntasun **absolutua** dario. Xabier Kintana

Ziurtasun **absolutuak** eta kasernaireak bakarrik toleratzen dira. Joxe Azurmendi

Irudiak ikustea (irudi artistikoak, guri dagokigunez) zentro horiek guztiak ikuslea bera den zentro **"absolutu"** bati buruz duten loturaren arabera antolatzea da. Josu Zabaleta

Hamar Aginduek zenbait eginbehar eta debeku ezartzen dituzte eta, Jainkoaren borondatearen adierazle direnez, aginduok **absolutuak** dira. Askoren artean

Legeak bi zati ditu: bat, modu **absolutuan** debekatzen duena: ez duzu egingo, eta alde penala: egiten duena zigortua izango da. Esteban Antxustegi

2 (izen gisa)

Segurtasuna hortaz **absolutu** bat bezala ulertzen da, Greziar pentsaeraren joerari jarraikiz, errealitatearen funtsarekiko erlazio intelektuala mantendu dute, eta oso definizio abstraktua eman dute, ondorenerako utziz **absolutu** horren izaera zehaztea, esperientziaren azalpenak eskatzen duen heinean. Berria - Gaiak

Absolutuak betetzen duen espaziotik kanpo daude erlabitismoa eta subjektibismoa. Piarres Aintziart

Absolutuaren ordua dirudi oraingo honek berriro. Joxe Azurmendi

Absolutu negatibo bat: "Ez". Piarres Aintziart

Ezin ditugu, antza denez, **absolutu** semantikoak aurkitu, gramatika baino lehen ezagutzen direnak, eta gramatikaren gaiak zehazteko nola-edo-hala erabil daitezkeenak. Itziar Laka

Gestu ezdeus horiek ene **absolutu** hutsak baino errealitate gehiago bazeukaten. Piarres Aintziart

Absolutuak egon badaude, baina **absolutu** denak erlatiboak dira. Joxe Azurmendi

Guri hazitako poeta depresiboa bata, **absolutu**-minez Ama Birjina ikustera iritsi zen ikasle zintzoa bestea. Xabier Mendiguren Elizegi

3 ***akats absolutu*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Legelariak, akatsez mintzo direnean, dela egitatezko akatsez, dela akats juridikoez, ez dira **akats absolutuez** ari, gizakien iritziez baizik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortaz **akats absolutua**, egoerarik okerrenean, estimatzailearen desbiderapen tipikoa "k" aldiz izango da, hots: ETC-zientzia, zuzenbidea

Datuak 1985etik 1989ra artekoak dira, eta sistema bakoitzeko **akats absolutuak** eta aurkitutako akatsen ehunekoak erakusten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 ***alkohol absolutu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Beste era batera esanda, ur-alkohol nahastearen 100 bolumenetan dagoen **alkohol absolutuaren** bolumena (v/v); hori dena 20ºC-an neurtuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***balio absolutu***

Eta une horretatik aurrera irudikapenak ezin zuen Akademiak egin zuen bezala **balio absolutu** izanez jarraitu, eta historia horren eta erakunde horren existentziarekin lotu behar zen nahitaez. Josu Zabaleta

Hala ere, desberdintasun nabarmenak daude herrien artean, bai **balio absolutuetan**, bai eta joeretan ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eta lanarekiko jarrera berri honek aisiarekiko jarrera berria ekarri zuen berekin; zeren eta, lana berez gaitz bat baldin bazen, aisiak **balio absolutua** izan behar baitzuen berez. Iñaki Mendiguren

Berdintsu da beste printzipio edo **balio absolutu** batzuekin, "bizitza sakratua da" adibidez. Joxe Azurmendi

Pertsonak **balio absolutua** du, ez da merkantzia bat: ez du preziorik, duintasuna baizik. Berria - Kultura

Batasunak **balio absolutu** eta dogmatikotzat baitu Euskal Herria zazpi herrialdek osatzen dutela. Berria - Euskal Herria

Neurriez eta formez hartzen ditugun ustezko iritziak ez du inolako **balio absoluturik**, organo baten ahalmenak eta geure buruarekin egiten dugun alderaketak baizik ez baitute erabakitzen hori. Josu Zabaleta

Joerak berez, beharren iturri gisa, horren urruti daude **balio absolutuko** guragai izatetik, non izaki arrazoimendun ororen desio orokorra izan behar duen eurengandik guztiz

askatzea. Jenaro Garate

Balio absolutuen teoria goitik behera botako diozu, baina gorde zaitez orduan zaplastadatik, Patri. Hasier Etxeberria

Zuk, gauza ororen erlatibotasunetik abiatuta, **balio absolutu** bat eman nahi diezu gauzen arteko erlazioei. Josu Zabaleta

Balio absolutuarekin sartu ziguk ziria. Jon Muñoz

Eta, beste alde batetik, eremu horretxen zatiketa ezin dela kontsideratu definitiboa edo **balio absolutukoa**; lehen hurbilketa bat da, baimendu behar diguna lehen zirriborro honen mugak ezaba dezaketen harremanak agerrarazten. Xabier Arregi

6 *biskositate absolutu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Kasu batzuetan, **biskositate absolutuaren** eta sartzearen arteko korrelazioa ere bilatu daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Biskositate dinamikoa, **biskositate absolutua**, likatasun absolutua edo likatasun dinamikoa higitzen ari den fluido batek bere forma aldatzeko egiten duen barne-erresistentzia da. ETC-entziklopedia

7 *botere absolutu*

Horregatik diote **botere absolutuaren** aurka lehenbizi inork eskubide hori lortuko balu herritarren egoera errukarria izango litzatekeela. Esteban Antxustegi

Geroxeago, 1576an, Jean Bodin legelari frantsesak, "Errepublikaren Sei Liburuak" argitaratzean, Estatu subiranoaren definizioa osatu zuen, Estatuaren esku ezarriz Jainko Ahalguztidunaren jaurgoa bera, hau baita **Botere Absolutua**. Piarres Xarriton

Gyanendra erregeak bere gain **botere absolutua** hartu eta urtebetera herrialdearen egoerak okerrera egin du. Berria - Mundua

Cromwellen erreboltaren bidez **botere absolutua** aldarrikatzen zuen monarkiaren nahia zapuztu zen, eta, horren ondorioz, beste aro baterantz abiatzen hasi zen Ingalaterra. Berria - Harian

Botereak bere menpe nahi izaten baititu herritarrak, eta **botere absolutuak** are menpekoago, edo erabat menpeko. Joan Mari Irigoien

Azen ontzeko, erregeak berez aski dorpea zen monarkiaren **botere absolutua** emendatu nahi zuen. Elena Touyarou

8 *datazio absolutu* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Datazio absolutu terminoa gai, objektu edo estratu geologiko baten adina hurbildu edo data bat zenbatesteko metodo eta teknologia teknika multzoari dagokio. ETC-entziklopedia

Gutienez aldaketa baten **datazio absolutua**, bertatik aitzinera hurrengo aldaketak kokatu ahal izateko. ETC-literatura, saiakera

Datazio absolutuko teknikak agertu aurretik, teknika honekin finkatu zen zer kronologia izan zuen "kultur"en hedadurak. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *entzumen absolutu* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Orkestrako musikariak **entzumen absolutua** du gorena. ETC-prentsa

10 *errege absolutu*

Errege absolutu zen, baina gero eta larriago zebilen diru faltan, Espainiaren aurka zeraman gerrak -beste hainbat gasturen artean- diru ugari eskatzen ziolako eta zerga gehiago nori eta nola ipini asmatu ezinik zebilelako. J.M. Olaizola "Txiliku"

11 *errore absolutu* *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Eskolan ez da egiten bereizketarik honako errore hauen artean: neurketari dagozkion erroreak (**errore absolutua**, errore erlatiboa), zeinak beti agertzen baitira, kalkulu-erroreak eta biribiltze-erroreak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kalkulatu lortutako balio esperimentalen **errore absolutua** eta erlatiboa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Orain, neurtutako tentsioaren **errore absolutua** honelaxe kalkula dezakegu: ETC-zientzia, zuzenbidea

Batez besteko **errore absolutua** 3.2 gramokoa da. ETC-entziklopedia

12 *eskala absolutu*

Horrexegatik esaten zaio **eskala absolutua** gradu Kelvinei, beste eskalek ez bezala zeroan baitu muga. Fernando Morillo

13 *estatu absolutu*

Respublica Christiana baten altzotik sorturiko zibilizazio sekular baten jaiotza beldurgarria **estatu "absolutu"** baten erakunde helenikoa berpiztuz izan zela egingarria, non erlijioa politikaren atal bat izan baitzen. Iñaki Mendiguren

14 *gehiengo absolutu* *(**84** agerraldi, **3** liburu eta **62** artikulutan; ETCn **1.390** agerraldi)* gehiengo osoa.

Gehiengo absolutuaren atarian geratuko lirateke, legebiltzarkide baten faltan. Berria - Euskal Herria

Udalen artean lauko hiruk onartu beharko lukete autonomiari buruz proposatutako testua, eta ondoren biztanleen **gehiengo** absolutuak berretsi. Pello Salaburu

M-11ko sarraskiaren egile ETA baldin bazen, PPk **gehiengo** absolutuaz irabaziko zuen. Txema Ramirez de la Piscina

15 *helbide absolutu* *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Programek memoria nagusian duten posizioa ezin denez aldez aurretik jakin, ezinezkoa da babesa ziurtatzeko konpilatze-denboran **helbide absolutuak** aztertzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hashing-funtzioak gako bat kaxoi-zenbaki erlatiboarekin mapatzen du, kaxoiari bloke-**helbide absolutu** bat esleitu beharrean. ETC-zientzia, zuzenbidea

16 *helbideratze absolutu* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Flagek adierazten dute SACL eta DACL badauden ala ez, objektuan lehenespen-mekanismo baten bidez jarri diren ala ez, eta deskribatzailearen erakusleek **helbideratze absolutua** edo erlatiboa erabiltzen duten. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erregistro bidezko zeharkakoa desplazamenduaren eremua 0z beteta lortzen da, eta **helbideratze absolutua**, ostera, 0 erregistroa oinarri-erregistro gisa erabiliz. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *hezetasun absolutu* *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Higrometroa airearen hezetasunaren neurgailua da. Badira **hezetasun absolutua** neurtzen duten higrometroak eta hezetasun erlatiboa neurtzen dutenak (kimikoak, kondentsaziozkoak, psikrometroak eta xurgaketazkoak). ETC-entziklopedia

Atmosferako hezetasunaz ari garelarik, **hezetasun absolutua** eta hezetasun erlatiboa berezi ohi dira. ETC-prentsa

Atmosferako hezetasunaz ari garelarik, **hezetasun absolutua** eta hezetasun erlatiboa berezi ohi dira. ETC-prentsa

Hezetasun absolutuaren eta erlatiboaren arteko erlazioa lortzeko, aire hezearen masak duen lurrunaren presio partzialak erabili behar dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Psikrometroaren termometro hezearen eta lehorraren irakurketak eta hezetasun erlatiboa, **hezetasun absolutua** eta ihintz-puntua erlazionatzen dituen diagrama. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hori da arrazoia aireak heze iruditzeko goizetan, eta sikuago eguerdietan, nahiz eta ez aldatu **hezetasun absolutua**. ETC-zientzia, zuzenbidea

18 *higidura absolutu* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Lehenengo eta behin, fisika klasikoak **higidura absolutuaren** nozioa erabiltzen zuen -gorputzen higidura espazio absolutuari dagokionez-, higidura erlatiboa -gorputzen higidura beste gorputzei dagokienez- behagarri gisa bakarrik onartu ahal izan arren. ETC-literatura, saiakera

Azken atal honetan **higidura absolutuaren** ezintasuna zehazten du bereziki. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, substantzia etikoaren errealitateak, aldez, autokontzientziaren **higidura absolutuaren** aurkako aldaezintasun lasaian hartzen du oin. ETC-literatura, saiakera

Berez, Lurraren **higidura absolutua** -hots, Lurraren higidura eter-argiarekin erlazionatuta- eta Newtonen espazio absolutua ez dira zentzugabekeriak, erlatibitatearen teoria defendatzen dutenek askotan adierazi izan duten bezala. ETC-literatura, saiakera

Gertakari horiek, materialdun gorputzei buruzko higidurak ez ezik, beren **higidura absolutu** direla lirudiketenak ere agertuko lizkiguketela ondorioztatzera eramango gintuzkete. ETC-literatura, saiakera

19 *likatasun absolutu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Biskositate dinamikoa, biskositate absolutua, **likatasun absolutua** edo likatasun dinamikoa (ikurra?mu,) higitzen ari den fluido batek bere forma aldatzeko egiten duen barne-erresistentzia da. ETC-entziklopedia

20 *monarkia absolutu*

Monarkia absolutua erregeak nahi duena egiten duen sistema da, betiere egiten duena asesinoen gogokoa den bitartean. Xabier Olarra

Vatikanoa, nahiz eliza den munduan dagoen erakunde zaharrenetako bat, garai horretan sortu zen estatu gisa, ez lehenago. 1929ko otsailaren 11n sinatu ziren Letrango Itunak eta, ondorioz, 44 kilometro koadroko estatu berri bat sortu zen **monarkia absolutu** gisa. Pello Salaburu

21 *tenperatura absolutu* *(corpusean ez dago; ETCn **108** agerraldi)*

Kelvin eskala edo **tenperatura absolutuaren** eskala, fisikan erabili ohi dena, oso ondorio zehatzak eragiten dituzten tenperaturei balio jakinak ezartzen dituen eskala bat dugu. ETC-prentsa

2003ko abuztuan hainbat efemeride gainditu ziren beroari dagokionez: **tenperatura absolutu** handiarena eta batez beste bero gehien duen hilabetearena. ETC-prentsa

Adierazpidearen beste ardatzean, biltegiko **tenperatura absolutuaren** alderantzizkoa jarriko genuke; ikerlanean zehar, pH desberdineko disoluzio bakoitza gordetzeko erabili den tenperaturaren alderantzizkoa, alegia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dena den, zehaztu behar da ezen eskalaren metafora hori **tenperatura absolutuaren** kasura ere zabaldu dela linguistikoki, nahiz eta kontzeptualki eskala batean emana ez dagoen, eta bestelako motako magnitudea izan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestelakoa da **tenperatura absolutuaren** kasua, magnitude fisiko arrunta baita, eta kasu horretan kantitate bat adierazten baita kontzeptualki. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kimikoki homogeneoa den solido edo likido baten kasuan (alegia, molekula homogeneoz osatutako solido edo likido baten kasuan), **tenperatura absolutua** zero denean, balio hori ere zero da. ETC-literatura, saiakera

Hala ere, nahiz eta oso baxuak izan, ez ziren izan Euskal Herrian erregistratutako **tenperatura absolutu** minimoak. ETC-entziklopedia

Termodinamikan, beroaren neurri adierazgarri gisa "TdS" kantitatea erabiltzen da, alegia, objektu baten **tenperatura absolutua** bider sistema baten entropiaren kantitate diferentziala, objektuaren mugan neurtua. ETC-entziklopedia

Eguzkiaren argitasunaren % 100eko gehikuntza absolutuak ez luke beharrez Lurraren **tenperatura absolutuaren** % 100eko gehikuntza suposatuko. ETC-entziklopedia

Gas ideal baten molekulen E-c translazio-energia zinetikoa t **tenperatura absolutuarekin** lotuta dago. ETC-entziklopedia

Hala ere, Lurreko **tenperatura absoluturik** baxuenak eta altuenak eskualde epeletan gertatzen dira, batez ere ipar hemisferioan. ETC-entziklopedia

22 *zero absolutu*

Ingeniariak ezin du lorpen hori berdindu, non eta ez dituen erabiltzen **zero absolututik** hurbileko tenperaturan funtzionatzen duten material supereroale berriak. Irene Aldasoro

-273,16 °C-tan dauka zeroa (**zero absolutua** edo zero Kelvin). Fernando Morillo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **absolutu bat** (15); **absolutu batean** (6); **absolutu baten** (10); **absolutu eta** (10); **absolutu gisa** (5); **absolutu hitza** (3); **absolutua da** (12); **absolutua dela** (4); **absolutua du** (4); **absolutua edo** (3); **absolutua ere** (5); **absolutua eta** (6); **absolutua ez** (4); **absolutua ez da** (3); **absolutua galdu** (5); **absolutua inferitzen** (3); **absolutua izan** (4); **absolutua izateko** (3); **absolutua lor** (3); **absolutua lortu** (14); **absolutua lortu zuen** (5); **absolutua lortzeko** (4); **absolutua lortzen** (3); **absolutuak eta** (7); **absolutuak ez** (6); **absolutuak ziren** (3); **absolutuan ulertzen** (3); **absolutuaren adigaia** (3); **absolutuaren ideia** (7); **absoluturik ez** (13); **absoluturik ez dagoela** (3); **absoluturik gabe** (3); **ahalmen absoluturik** (4); **alderdiak gehiengo absolutua** (3); **badu gehiengo absolutua** (3); **bakuntasun absolutua** (3); **balio absolutu** (11); **balio absolutua** (4); **balio absolutuak** (8); **balio absolutuen** (8); **balio absolutuen** (8); **batasun absolutu** (3); **batasun absolutua** (15); **batasun absolutuaren** (3); **batek gehiengo absolutua** (3); **beharrezkotasun absolutua** (13); **beharrezkotasun absolutuaren** (4); **beharrezkotasun absoluturako** (4); **botere absolutua** (13); **botere absolutuaren** (4); **botere absoluturik** (3); **da absolutua** (3); **dela absolutua** (3); **egia absolutu** (3); **egia absolutua** (5); **errealitate absolutua** (3); **eta absolutua** (3); **eta absolutuak** (5); **eta absolutuaren** (5); **ez absolutua** (3); **ez dela absolutua** (3); **ezerez absolututik** (3); **gehiengo absolutua** (61); **gehiengo absolutua galdu** (5); **gehiengo absolutua lor** (3); **gehiengo absolutua lortu** (14); **gehiengo absolutua lortzeko** (4); **gehiengo absolutua lortzen** (3); **gehiengo absolutuaren** (4); **gehiengo absoluturik** (4); **gehiengo absolututik** (3); **gehiengo absolutuz** (3); **ilararen osotasun absolutua** (3); **izaera absolutuari** (3); **modu absolutuan** (7); **muga absolutua** (3); **nagusitasun absolutua** (3); **osoki absolutu** (4); **osoki absolutua** (4); **osotasun absolutua** (17); **osotasun absolutuan** (3); **osotasun absolutuaren** (3); **subjektu absolutua** (3); **totalitate absolutua** (8); **totalitate absolutuaren** (5); **totalitate absolutuaren ideia** (4); **zentro absolutu** (3); **zentzu absolutuan** (3)

---

absolutuki *(ETCn **239** agerraldi; orobat **abtsolutoki** **6** agerraldi)* *adlag* era absolutuan; erabat, guztiz.

Hortik dator gutarik bakoitzak baduela bere buruaren eta bere afektuen, **absolutuki** ez bada ere zatika bederen, modu argi eta egokian ezagutzeko ahalmena, eta ondorioz, haietarik ez hainbeste pairatzeko bidea. Piarres Xarriton

Izakiak, hau da Jainkoak, badu bere baitan existitzeko ahalmen **absolutuki** mugagabea eta, beraz, existitzen da **absolutuki**. Piarres Xarriton

Absolutuki mugagabea erran dut, ez ordea, bere generoan mugagabea, zeren bere generoan bakarrik mugagabea denari ukatzen ahal baitizkiogu kontaezinezko atributuak. Piarres Xarriton

---

absolututasun *iz* absolutua denaren nolakotasuna.

Ez da harritzekoa ere, zeren ideologiak berez duen ezaugarria baita ideologia soila denik bere buruari ere ezkutatzea, eta bere arauak **absolututasun** batetik ondorioztatuak direla sinetsaraztea. Josu Zabaleta

Kierkegaardek bizipen indibidualaren eta kontzientzia pertsonalaren **absolututasuna** kontrajarriko dio arrazoimen unibertsal abstraktuari. Askoren artean

Mundu horren **absolututasuna**, nire Niarena adinakoxea izan daiteke gehienez ere. Joxe Azurmendi

Oinorde "libre" bilakatuko banintzen, ezinbestez hautsi beharko nuen betidanik bahiturik edukia ninduen isiltasun horren **absolututasuna**. Joxan Elosegi

Balio moralen **absolututasunak** (hau eztabaidaezina da Hartmannentzat) ateismoa postularazten du. Joxe Azurmendi

Arau eta balioen ziurtasun, **absolututasun** galdapena signifika lezake hemen Akinotarrak. Joxe Azurmendi

---

absoluzio *(orobat **absolbazino** g.er. eta **absoluzione** g.er.)* **1** *iz* epaiketa edo kideko batean, akusatua errugabea dela adieraztea.

Defentsak **absoluzioa** eskatu zuen. Berria - Mundua

Fiskala, akusatuen **absoluzioa** eskatu arren, gogor aritu zen akusatuen galdeketan. Berria - Harian

Salaketa susmoetan besterik ez da oinarritzen eta irtenbide bakarra **absoluzioa** da. Berria - Mundua

Jone Dorronsorori, 50 urte; Itziar Aizpuruari, 15 urte; Anton Karrerari, 12 urte; Arantza Arrutiri, **absoluzioa**; Julen Kaltzadari, 12 urteko kartzela. Jokin Urain

Langileen batzordeak **absoluzioa** exijitu du, eta aurretik ere auzitegiek auzia artxibatu zutela azpimarratu du. Berria - Ekonomia

Epaitutako ertzain baten **absoluzioa** berretsi du Auzitegi Gorenak. Berria - Euskal Herria

Ackermannek eta Deutsche Bankek **absoluzio** epaia jasoko duten itxaropena dute; horrela ez izanez gero, bankuko zuzendariak bere kargua utzi behar izango lukeelako. Berria - Ekonomia

Antonio Saez de Santamariaren **absoluzio** eskaria. Berria - Harian

Fiskaltzak helegitea jarriko du Sebas Etxanizen **absoluzioaren** kontra. Berria - Euskal Herria

Epaiketa **absoluzioekin** amaitzeko nahia azaldu zuen Joseba Azkarraga EAEko Justizia sailburuak Berria - Harian

2 apaizak aitortzan bekatuak barkatzea.

Damutu ez den erregeari apaizak ematen dion **absoluzioa**, Ezin aski prezatuzko ohorea eta ongia ekar lezakeela gure Artzapezpikuaren **absoluzio** osoak. Xabier Olarra

Ez zuen dokumentuak, horrenbestez, ez buru eta ez aburu, erdia loria eta erdia laido, erdia **absoluzio** eta erdia kondenazio. Juan Garzia

Hemen esaten da San Antoniok penitente bat aurkitu zuela, eta ikusi zuela **absoluzioa** merezi zuela, eta eman egin ziola. Jon Alonso

Ez zuen inondik inora pentsatu nahi nola izana zen Contlan, hango apaiz jaunarekin konfesio jenerala egiten, eta nola hark, arrenka eskatu arren, **absoluzioa** ukatua zion.

Juan Garzia

Hurbildu ziren beilariak, ohartu ziren lo zagoela eta kopetatik hasirik bisaian beheiti itxurak arras joaiten ari zaizkola; oihu egiten diote aita Deyheralderi, heldu da berehala et azken **absoluzionea** emaiten dio. Xipri Arbelbide

-Nahi al duzu hartu bekatu guztien **absoluzioa**? Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
absoluzioa eskatu (13); **absoluzioa eskatu du** (3); **absoluzioa eskatu zuen** (9); **absoluzioa eskatzen** (3); **akusatuen absoluzioa eskatu** (3)

---

absoluzione ik **absoluzio**.

---

absorbantzia *(corpusean ez dago; ETCn **95** agerraldi) iz* fisikan, gorputz batek xurgatzen duen erradiazio energiaren eta jasotzen duenaren arteko erlazioa.

non log (I0/I) kantitateari A **absorbantzia** baiteritzo; ikurra, berriz, xurgapen-koefiziente molarra edo xurgapen-koefiziente molarra da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tresna horietan, proportzionalak dira likido-geruzaren **absorbantzia** eta erradiazioak zeharkatzen duen jalkitze-ganberako puntu horretan dauden partikulen kopurua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Neurtutako altuera (**absorbantzia** , A) laginaren kontzentrazio molarraz (C) zatituz kalkulatzen da e-ren balioa (kontuan izanda 1 cm-ko luzera duen ontzi estandar bat erabili dela). ETC-zientzia, zuzenbidea

Oxalato determinazio frogak ematen duen **absorbantzia** gernuko kreatinina kontzentrazioarekin normalizatua irudikatu da denboran zehar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Makilatxoen pigmentuen gehieneko **absorbantzia** 496 nm-koa da eta lortzen den irudia zuri-beltzekoen modukoa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edozein propietateri aplika dakioke: **absorbantzia** , konduktibitatea, tentsioa, tenperatura... ETC-entziklopedia

Soluzio berri hori espektrofotometroan jartzen da eta 275 nanometroan duen **absorbantzia** neurtzen da. ETC-entziklopedia

Ubikinona olioan disolbagarria den konposatua denez askotan bere **absorbantzia** faboratzeko gantzarekin batera hartzea gomendatzen da, batik bat, olio virgen extran kozinatuta dauden elikagaiekin batera. ETC-entziklopedia

---

absorbatu, absorba(tu), absorbatzen du *ad* xurgatu.

Zeren jana eta edana gorputz barruan **absorbatuak** dira, eta, han toki jakinak betetzen dituztenez gero, aisa asetzen da ur edo ogi galea. Xabier Amuriza

Objektuak argia nola islatzen eta **absorbatzen** duen, halakoa izango da esperientzia. Askoren artean

Baina hitz eskasen hutsa gainditu dudalarik, hustasunak berak **absorbatu** nau eta elementuetan urtu naiz gisa batez. Piarres Aintziart

Taularen pisu osoan beirazko zuntza oso gutxi izan arren, trakzio indarrak ongi **absorbatzen** ditu eta zurruntasun egokia ematen diomaterialari. Berria - Gaiak

Material "inteligente" hauek ingurumeneko kutsadura **absorbatu** eta gutxitzen dute, neurri batean. Berria - Gaiak

---

absorbatzaile *izond* xurgatzailea.

Lur **absorbatzaileak** espezie ezberdinen araberakoak (karedunak eta muriatikoak) direla aurkitzeko arrazoimenaren erregela bat behar dugu. Ibon Uribarri

---

absorbatze *iz* xurgatzea.

Eta islatze eta **absorbatze** horiek objektuaren azalaren egituraren arabera gertatzen dira. Askoren artean

---

absorbitu, absorbi(tu), absorbitzen *(corpusean ez dago; ETCn **67** agerraldi; orobat **absorbatu** ETCn **262** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **absorbatu** agertzen da)* du *ad* xurgatu. ik **absorbatu**.

Aldi berean, bareak janariaren hondakinak **absorbitzen** zituen; bertan, bilis beltz bihurtzen ziren eta gero hesteetatik kanporatzen ziren. ETC-literatura, saiakera

Aldiz, biltzaile eta ehiztari baketsuak (berdin, hain baketsuak ez ziren hainbat herri txiki ere) lurraren ertzetara bultzatuak izan ziren, non pixkanaka ezdeustu edo **absorbituak** izango ziren. ETC-literatura, saiakera

Egia esan, koordinazioa baino areago, ez dakit elementuen autonomia ez den arrakastaren eragile, zeren, nire gogoa bularretan galduriko aurpegiak **absorbitzen** duen bitartean, badirudi behealdea bere kasa dabilela. ETC-literatura, saiakera

Euskadikoaren gisako ia monopolioko egoerak, non bezero bakar batek **absorbitzen** duen eta finantzatzen duen sektorearen ia produkzio guztia, kaltegarriak izan daitezke sektorearen garapenerako, batez ere erraztu egiten dutelako klientelismoa, dirigismoa eta manipulazioa. ETC-literatura, saiakera

Literatur merkatu europarrak ezin du jasan berrogeita hamar idazle lituaniarren luizia (eta lituaniarrak ere ezin du bi egile holandar baino gehiago **absorbitu** , esaterako), eta horregatik bat edo bi izango dira ongi etorriak, soilik. ETC-literatura, saiakera

Frekuentzi handiagokoak dira mikrouhinak, infragorria eta ikusten den argia, eta gehiago **absorbitzen** ditugu (mikrouhinek gure ur molekulak berotzen dituzte). ETC-prentsa

Nola ordain ditzakete etxe-jabeek eta negozio-gizonek beren zorrak baldin eta berogailurako, elektrizitaterako eta garraiorako kostuek beren errentak **absorbitzen** badituzte? ETC-prentsa

Hots, eraikuntza nazionalaren ikuspegi super-estrukturalista eta hertsiegia, zeinak gehiegi **absorbitzen** baikaitu beste borroken kalterako, eta, azken finean, ezkerreko nazio eraikuntzarako. ETC-prentsa

Defentsa horiek energia gehiago **absorbitzen** dute, eta hobeto gaitzen eta segurtatzen dituzte atrakalekuak. ETC-prentsa

Horregatik emanazio horien esposizio pean dauden pertsonek zigarro horietatik ateratzen den nikotina eta gainerako osagai kaltegarriak irentsi edo **absorbitzen** dituzte, horrek ekar ditzakeen kalte posible guztiekin. ETC-prentsa

Izan ere, elikagaiak irentsi beharrean, kanpo-hormatik **absorbitzen** dituzte, forma disolbatuan, prokariotoetan eta onddoetan gertatzen den era berean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sistema ekologikoak behar ditugu ekoizpen-prozesuan eta azken produktuen erabileran sortzen diren hondakinak berriro **absorbitzeko** . ETC-zientzia, zuzenbidea

Atmosferak aipatutako erradiazioa **absorbitu** egiten du, eta ondorioz, beroketa bat eta uhin-luzera luzeko erradiazioaren emisio bat eragiten du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ze da, da... eee... zulo bat bezala **absorbitu** egiten zaituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontsumitzen diren ondasunak ekoizten diren azaleren arabera elkartzen dira: soroak, larreak, basoak, itsas ekoizleak, eraikitako lurrak, CO2 **absorbitzen** duten azalerak. ETC-entziklopedia

Absorbitutako eta islatutako fotoien balantzeak determinatuko du metalaren txuritasuna nahiz gristasuna. Adibidez, zilarra, oso eroale den metala, txurienetakoa da. ETC-entziklopedia

---

absortzio 1 *iz* xurgatzea.

Behin aurkituta, sustraiak zulatzen ditu, landarearen **absortzioa** eta izerdi landugabearen garraioa oztopatuz. Berria - Gaiak

2 enpresa edo kideko batek beste enpresa edo kideko batez jabetu.

Enpresen jabetzan izan diren kontzentrazio prozesuarekin batera (fusioak, **absortzioak**, partaidetzak...), kudeaketa aldetik azpikontratazioa erruz erabiltzea izan da joera (outsorcing delakoa). Iñaki Heras

3 *absortzio espektro* *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Molekula gaseosoak, ohiko baldintza atmosferikoetan, ekarpen gutxi egiten dute erradiazioaren atenuazioan, zeren eta, NO2-aren salbuespenarekin (ikus haren **absortzio-espektroa** 3.12. irudian). ETC-zientzia, zuzenbidea

CeO2 kontzentrazio desberdineko filmen UV **absortzio espektroa**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Honenbestez, adierazle baten forma azidoaren eta basikoaren **absortzio-espektroa** ezberdina izango da, eta, beraz, adierazle-disoluzio baten espektroa pH-rekin aldatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Irudian) **absortzio espektroa** unitate kromoforiko bakoitzari dagokion hiru banda nagusiz osatuta dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Momentu magnetiko honen bidez ikus daiteke RMN-ren **absortzio espektroak**. ETC-entziklopedia

Fluoroforo askorentzat **absortzio espektroa** emisio espektroaren ispilu irudia da. ETC-entziklopedia

Estruktura baten **absortzio espektro** linealak lehenengo (e1, h1) eta bigarren (e2, h2) azpibanda kuantikoak eszitoi erresonantziak erakusten ditu, hala nola, egoera jarraiei eta eragozpenei dagozkien absortzioak. ETC-entziklopedia

---

abstemio *izond/iz* edari alkoholdunik edaten ez duena.

[Epikuro] filosofo **abstemio** hark, gizonaren helburu nagusia atsegina bilatzea behar duela pentsatzen zuenez, ez baitzuen denbora alferrik galtzen zentzumenei atsegin ematen. Xabier Olarra

Iparraldeko **abstemio** bat, ikuspuntuetan erradikala, jokamoldeetan puritanoa eta bere lanean ikusmen garbikoa. Oskar Arana

Abstemioen Ligakoa izateagatik eroan hinduten komisaldegira? Josu Landa

-Ez huen sinistuko **abstemioa** naizelako amarru zikin hori. Josu Landa

Ur horretatik edaten dutenak **abstemio** egiten dira erabat. Santiago Iruretagoiena

---

abstenitu, absteni(tu), abstenitzen da *ad* zerbait egiteari edo hartzeari utzi.

IUk ezezko boza eman zuen eta PSOE **abstenitu** egin zen. Berria - Kultura

Sozialista Abertzaleak **abstenitu** egin zen, eta PPk kontra bozkatu zuen. Berria - Kirola

Ez dakit **abstenituko** den edo alde bozkatuko duen. Berria - Euskal Herria

Alemania, Frantzia, Espainia, Brasil, Txile, Errumania eta Beninek **abstenitu** gogo zuten. Berria - Mundua

Badago jende bat protesta moduan **abstenitu** egin dena. Berria - Harian

15,25 milioi euroko aurrekontua izango du klubak datorren denboraldian: 137 bazkidek eman zuten aldeko botoa, 41ek kontrakoa, eta 34 **abstenitu** ziren. Berria - Kirola

Azken kontseilu bilkura baitut, nire buruari plazer eginen diot, **abstenitzen** naiz. Herria

ERCk iragarri du, asteazkenean Espainiako Senatuan egitekoa den bozketan, errepublikanoak **abstenitu** egingo direla, Estatutua ez trabatzeko. Berria - Mundua

Ezkerreko oposizioa **abstenitu** da, Jean Claude Lamourre kontseilaria alde agertu delarik. Herria

Gizakiak ez duela irudikeria faltsuen espekulazioetan buru-belarri abiatu behar, eta zalantzak badatozkio, edota gai hori frogatu ez bazaio, ez duela bera ukatu edo arbuiatu behar, ez eta gezurrezkotzat jo, baizik eta lasai egon, eta "bere Sortzailearen gloria aintzat hartu", **abstenitu** eta geldi egonez. Xabier Kintana

Eta enteratu ez bada, **abstenitu** dadila! Pako Aristi

Indarkeria desagertzen ez zen artean erreferendumik ez zela egingo hitzartu zutela azaldu zuen orduan Victor Manuel Arbeloak, **abstenitu** izana argudiatzeko. Berria - Euskal Herria

Beste aukera zen hirurak **abstenitzea**. Berria - Euskal Herria

1978ko udazkenean, Konstituzioaren erreferendumean **abstenitzeko** deia egiten zituzten afixak pegatzen ari zela, inkontrolatu talde batek Ander harrapatu eta bortizki jipoitu zuen. Berria - Euskal Herria

Abstenitzen zirenek karlisten jipoia hartzen zuten batean eta kristinoen fusilamendua hurrengoan. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abstenitu da** (3); **abstenitu dira** (5); **abstenitu egin** (110); **abstenitu egin da** (3); **abstenitu egin dira** (4); **abstenitu egin zen** (49); **abstenitu egin ziren** (48); **abstenitu eginen** (8); **abstenitu eginen dela** (4); **abstenitu egingo** (4); **abstenitu zen** (3); **abstenitu ziren** (7); **abstenitzeko deia** (3); **aralar abstenitu egin** (3); **bat abstenitu egin** (4); **ea abstenitu** (6); **ea abstenitu egin** (4); **eb abstenitu egin** (3); **ee abstenitu egin** (6); **ehak abstenitu egin** (3); **eta aralar abstenitu** (3); **eta ea abstenitu** (5); **pp abstenitu** (4); **pp abstenitu egin** (3); **pse ee abstenitu** (6)

---

abstenitzaile *iz* abstenitzen den pertsona.

Izan ere, bi leku horietan, ezkerreko eta eskuineko indarren boto batuketen emaitzak estu-estuak dira eta bi blokeen artean alderdien arteko boz trukaketek eta lehen txandako **abstenitzaileen** jokaerak dute alde batera edo bestera trenkatuko. Berria - Mundua

---

abstentzio *(orobat **abstenzio** g.er.)* *iz* zerbait egiteari edo hartzeari, eta eskuarki boto emateari uztea.

Hedabide eta alderdi politiko gehienek baietza defendatu arren, Euskal Herrian ezetza edota **abstentzioa** nagusitu ziren. Txema Ramirez de la Piscina

Hor konpon zuen boto eta **abstentzioekin**, ni inozentziak bizi nau, desarrazoitze lan eder honek, entenitzen? Patziku Perurena

Bere azken obran bezala, Europako hauteskundeetan gertatutako **abstentzioak** herritarren parte-hartze ezarekin harreman zuzena duela uste du Saramagok. Berria - Kultura

Herrialde arabiarren izenean, Aljeriak aurkeztutako kondenazioaren alde boto egin zuten Segurtasun Kontseiluko 15 partaideetatik 14k, Ameriketako Estatu Batuetako ordezkariak, aldiz, **abstenziora** jo zuelarik. Berria - Mundua

Hego Euskal Herriko **abstentzioaren** batez bestekoa %60,6koa izan zen. Berria - Harian

Nabarmentzekoa da ezezko botoen eta **abstentzioen** kopurua, aurrekontua eta balantzea aho batez onartu izan direlako gehienetan. Berria - Kirola

Orduko **abstentzioaren** zati garrantzitsu bat **abstentzio** aktiboa izan zen nabarmen, EAJk aukera horren aldeko kanpaina egin baitzuen, eta horren ondorioa nabarmena izan zen: **abstentzioa** %56koa izan zen bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan, 40,7koa Araban eta 33,4koa Araban. Berria - Harian

Halaz ere, nekez harro ninteke **abstentzio** zuhur horrengatik. Joxan Elosegi

Jarduneko presidentearentzat, areriorik serioena **abstenzio** handiegia izango litzateke. Berria - Mundua

Ez dirudi kasualitatea izan behar duenik aspalditik egotzi zaizkien pasadizoek, modu askotakoak izan arren, halako zer bat izatea guztiek ere, estatikotasun edo bat, **abstentzio** duinezko jarrera bat, beren buruak biziaren ibai nagusitik baztertutzat jotze halako bat, beren gogozkoa zein gogoz kontra onartua. Juan Garzia

Ezin da ahaztu alderdi nazionalistek espresuki eskatu zutela botorik ez ematea, eta Euskal Herrian gertatu zen **abstentzio** maila, araberean, Espainia osokoa baino 18

puntuz goragokoa izan zela. Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abstentzio aktiboa (3); **abstentzio egon ziren** (3); **abstentzio handia** (10); **abstentzio horrek** (3); **abstentzio izan ziren** (3); **abstentzio jaso zituen** (3); **abstentzio maila** (4)

abstentzioa aukeratu (3); **abstentzioa edo** (3); **abstentzioa eskatu** (5); **abstentzioa ez** (5); **abstentzioa hain handia** (3); **abstentzioa handia izan** (5); **abstentzioa izan da** (5); **abstentzioa oso** (4); **abstentzioa proposatu** (3); **baina abstentzioa** (4); **edo abstentzioa** (3); **ere abstentzioa** (4); **izan zen abstentzioa** (3)

abstentzioaren alde egin (5); **abstentzioaren aldeko hautua** (3); **abstentzioaren aukera** (3); **abstentzioaren batez bestekoa** (3); **ezezkoaren eta abstentzioaren** (4)

abstentzioari esker (8)

abstentziora jo dute (4)

abstentziorik handiena (3)

---

abstentzionismo *iz* zerbait egiteari edo hartzeari, eta eskuarki boto emateari uzteko joera.

Eskubide horren ezabatzea da **abstenzionismoaren** gaurko politikaren aurka jokatzea. Herria

---

abstentzionista *izond* abstentzioaren aldekoa.

Gainera, bere konstituzioa aldatu eta iparraldeko legebiltzar gorrotatuarekiko ohiko politika **abstentzionista** baztetu zuen. Berria - Mundua

---

abstenzio ik **abstentzio**.

---

abstinentzia *(hitz elkartuetan orobat **abstinentzi**)* **1** *iz* egun jakin batzuetan haragia jateari uztea.

Gero eta **abstinentzia** gogorragoa egiteko bideak asmatzen zituen, eta bere bijiliak eguneroko ariketaz areagotzen zituen. Askoren artean

Behin zigarro bat erreaz **abstinentzia** hautsi duelako mendekotasunean erortzen den jendeak logika erlijiosoari jarraitzen omen dio. Ramon Saizarbitoria

Egun kritiko horietako batean, goseari gehiago ezin eutsi, eta kilo eta erdi sagar jan irentsi nuen, harrapazka, erretzaile konpultsibo batek **abstinentziari** utzi, eta zigarroei ekingo liekeen modu bertsuan. Patxi Zubizarreta

Ez **abstinentzian** bakarrik, baita jatean ere, guztiei onbiderako etsenplua ematen zien. Askoren artean

Garizuma kristau-**abstinentziaren** sasoi bihurtu zen. Iñaki Mendiguren

2 irud/hed

Ignaziak eta Martinek, sendagilearen aholkuz, edariak uztera behartu zuten agurea, ardo nahiz pattar; baina Tellagorri, **abstinentziazko** prozedura haiekin, ahultzen eta tristatzen hasi zen. Koro Navarro

Erakunde honetako arduradunen esanetan, **abstinentzia** da sexu harremanen bidez kutsatzen diren gaitzak saihesteko "erarik egokiena". Berria - Gaiak

Hiesari aurre egiteko **abstinentzia** gomendatu zuen. Berria - Mundua

Arian-arian, **abstinentzia** ohitura bilakatu zitzaion eta emakumeekiko jokaera bare eta erabat gogogabea garatu zuen. Jose Morales

Batzuek diote **abstinentzia** sindromea dela, hau da, burmuineko narkotikoen eguneroko dosia falta dutela. Luis Elberdin

Ospitale psikiatrikoan egon nintzen garaian, benetan erotu behar nuela iruditu baitzitzaidan: drogarekiko **abstinentzi** sindromea, depresioa. Joan Mari Irigoien

3 ***abstinentzi sindrome***

Bigarrengoz ere eraman ei zuten hara, "**abstinentzi sindromeak** jota zegoelako». Berria - Euskal Herria

Ospitale psikiatrikoan egon nintzen garaian, benetan erotu behar nuela iruditu baitzitzaidan: drogarekiko **abstinentzi sindromea**, depresioa... Ez diot halako egoerarik inori opa, ezta neure etsai handienari ere. Joan Mari Irigoien

4 ***abstinentzia sindrome***

Batzuek diote **abstinentzia sindromea** dela, hau da, burmuineko narkotikoen eguneroko dosia falta dutela. Luis Elberdin

Zentzu horretan, **abstinentzia sindromeak**, dardarak, buruko minak, botagurea, konbultsioak, izerdi botatzeak, makalaldiak eta delirium tremensa eragiten dutela dio. Berria - Gaiak

Internetik gabe astebete egoteak dakarren **abstinentzia sindromeak** nolabaiteko astinaldi psikomotorea eragiten zuela zioen: adibidez, atzamarren nahi gabeko mugimendua. Berria - Harian

5 ***sexu abstinentzia*** *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Sexu-abstinentzia sexu-ekintzak guztiz edo partzialki ez egitearen jarduera da, arrazoi medikoek, psikologikoek, finantzarioek, erlijiosoek edo moralak bultzatuta. ETC-entziklopedia

Zelibatu (latinezko hitzetik ekarria) edo ezkongetza arrazoi erlijiosoek egindako **sexu-abstinentzia** da. ETC-entziklopedia

Nerabeekin egiten dituen prebentzio kanpainetan **sexu abstinentzia** sustatzen du. ETC-prentsa

AEBetan goratu egiten da **sexu abstinentzia**. ETC-prentsa

Bushek, integrismo kristauaren bidetik, **sexu abstinentziaren** aldeko kanpaina erraldoiak bultzatzen ditu hiesaren eta sexu bidezko gaixotasunen aurka. ETC-prentsa

Horren lekuan **sexu abstinentzia** bultzatu zuen. ETC-prentsa

Hiesaren aurkako egitasmoa eredu gisa aurkeztu da nazioartean, baina azken hilabeteotan **sexu-abstinentzian** oinarrituriko kanpaina egiten ari da presidentearen emaztea. ETC-prentsa

Euskaraz egiten dugunok, adinarengatik beharbada ez dugu jakingo katiximaren arabera zer dakarren aldean, kasurako, kastitatearen bertuteak, baina wikipedian bilatuta erraz ikusiko dugu kristauen kastitateak **sexu-abstinentzia** esan gura duela oroz gain, kasu eta ñabardura askorekin segun-eta zein den pertsona kastuaren egoera eta izaera. ETC-literatura, saiakera

c Sexu bidez transmititutako gaitzen kontrol eraginkorra kondoiak erabiliz eta **sexu-abstinentziarekin** ere lor daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, hirietako emakumeek denbora gutxiago ematen zietenez bularra jaioberriei, ohiko **sexu-abstinentzia** ere labur tu egin zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pentsamendu naturalistaren bigarren lerroak, estoikoen eskutik, laster jartzen du zalantzan **sexu-abstinentzia** naturaz kontrakoa denik eta, beraz, jokabide desordenatua, txarra, denik. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abstinentzi sindromeak (3); **abstinentzia sindromea** (3)

---

abstract *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)* *iz* laburpena, sinopsia.

Hona nola laburbildu duen aldizkariko idazlaritzak gaia agiriaren **abstractean**: "Aztertu ondoren hezurretan behar baino pittin bat dentsitate gutxiago duten emakumeen tratamendua justifikatzeko erabiltzen diren datuak, egileek diote tratamendua sustatzen dutenek esajeratu egin dituztela onurak eta arriskuak gutxietsi". ETC-prentsa

Zientzialariek "**abstract**" deitzen dioten atarikoan, autoreak argi eta garbi adierazten zuen bere asmo handia: "Mekanika kuantiko teorikoaren oinarri bat ezartzea, printzipioz behagarri diren magnitudeen arteko erlazioetan soilik oinarrituta". ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretarako, atal bakoitzaren sarreran **abstract** edo laburpen orientatzailea egokitu dugu eta ingelesera itzularazi, bestelako egokitzapen metodologiko-formal zenbait ere eginez, oin-oharretan edota bibliografian. ETC-zientzia, zuzenbidea

Datu-base horretan argitalpen bakoitzaren titulu, **abstract** eta eskuz esleitutako gako-hitzak daude -gako-hitz hauek medikuntzako thesaurus batetik hartutakoak dira. ETC-entziklopedia

---

abstraitu, abstrai(tu), abstraitzen da/du *ad* eragiketa intelektual baten bidez gauza baten kualitate bat bereizi, gauza horren zati bat ez balitz bezala hartuz gogoan.

Honetan datza, beraz, denboraren idealtasun transzendentala, zeinaren arabera sentsuzko begiespenaren baldintza subjektiboez **abstraituz** gero, orduan denbora ezer ez baita. Ibon Uribarri

Horrela, bi ur-tantari dagokienez, barneko ezberdintasun guztiaz (kualitateaz eta kantitateaz) osoro **abstrai** daiteke, eta aski da aldi berean leku ezberdinetan begietsiak izatea hauek zenbakiari dagokionez ezberdintzat jotzeko. Ibon Uribarri

Irudimena, bere hautematean, ezin daiteke nolabait materiatik aska, forma bat **abstraitzeko** egin litzakeen ahalegin guztiak gorabehera; eta horrexegatik, ez zaio irudimenari kasurik egin behar. Xabier Kintana

Putzu bati edo harri bati liluraz begira dagoen inozentearentzat, ez dira deus "putzu", "harri", edo "bat" hitzak; eta horrexegatik da bere atsegina deustara ere **abstraitu** ezinezkoa. Patziku Perurena

Adimenduaren egintza, hots, hautematea, berorren egiazko esentzia dela argiturik, hortik segitzen da zuraren forma **abstraitu** eta hauteman duena, hau da, adimendua, era berean adimenduna dela; izan ere, zuraren forma **abstraitu** eta hauteman adimenduak egin du, eta horixe da, hain zuzen, beraren egintza, eta horrexegatik "adimendun" esaten zaio. Xabier Kintana

Jakiteko duzu gizakia, gauza bat pentsatu baino lehen, "ahalmenean dela adimendun"; baina zerbait pentsatu duenean, esate baterako, halako zuraren formaz gogoeta egitean horren itxura bere materiatik **abstraitu** duenean -horixe baita, azken buruan, adimenduaren zeregina-, orduan "egintzan bilakatu dela adimendun". Xabier Kintana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abstraitu behar** (3); **abstraitu eta** (3); **abstraitzen badugu** (5); **abstraitzen badut** (3); **abstraitzen baita** (3); **abstraitzen baldin** (3); **abstraitzen da** (3); **abstraitzen denez** (3); **abstraitzen denez gero** (3); **abstraitzen du** (8); **abstraitzen duen** (5); **abstraitzen duenez** (3); **baldintza oroz abstraitzen** (4); **eduki oroz abstraitzen** (13); **objektu oroz abstraitzen** (3); **oroz abstraitzen** (30); **oroz abstraitzen du** (5); **oroz abstraitzen duen** (5); **oroz abstraitzen duenez** (3)

---

abstrakto ik **abstraktu**.

---

abstraktotasun ik **abstraktutasun**.

---

abstraktu *(orobat **abstrakto** g.er. eta **abstratu** g.er.)* **1** *izond* nolakotasunez mintatuz, izaki errealetan gauzaturik gabe gogoan hartzen dena.

Marko konkretua, marko **abstraktua**. Josu Zabaleta

Modelo matematikoen formulazio **abstraktuak**. Pello Salaburu

Irudikapenaren eta adierazpenaren arteko bereizkuntzari dagokionez, erreferentearen izaeraren desberdintasunaren arabera definitzen du, erreferente konkretua baita lehenengoan, eta **abstraktua** bigarrenean. Josu Zabaleta

Beraz, **abstraktua** eta konkretua bezala direla erranez baino hobeki bereizten dira biak, ahalmena eta ekintza bezala direla agertuz. Piarres Xarriton

Balizko irakurlea gogoan duela idazten omen du zenbaitek literatura, baina irakurle hori, balizko ez ezik **abstraktua** da, eta, batez ere, urruti dago, nola espazioan hala denboran ere. Joxerra Garzia

Unibertsitateaz hitz egiten dugunean ez gara **abstraktua** den zerbaitez ari, oso zehatza den zerbaiti buruz baizik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Distantzia hori ezin neur daiteke, jakina; hala ere, horretaz baliatuz berariaz narraziozkoa eta fikziozkoa ere izango ez zen zinema bat egitea proposatu zuen; zinema horretan horrelako erlazio **abstraktuen** konbinazioetatik (formen, iraupenen, koadraketen eta besteren konbinazioetatik) sortuko ziren esanahia eta emozioa. Josu Zabaleta

"Eisensteinek modu **abstraktuan** pentsatzen dik zinea bezalako gauza konkretu bat", erantzun diot Jaimeri. Anjel Lertxundi

Ez da harritzekoa, bada, irudi **abstraktuaz**, eta balio plastikoez oro har, idatzi diren lehenengo teoria-lanak Bauhausek, 1920ko hamarraldian argitaratu izana. Josu Zabaleta

Objektu konkretuak irudikatu egiten dira, (objektuen) balio **abstraktuak** adierazi egiten dira. Josu Zabaleta

Irudi sinbolikoa gauza **abstraktuak** irudikatzen dituena da ("irudiak berak baino abstraktutasun maila handiagokoa"). Josu Zabaleta

Izaki **abstraktuak** dira, eta ezin dira sandalien kontra zanpatu. Jon Muñoz

Problema batekin pentsatzen duzunean, problema horren munduan bizitzen zara, eta nozio **abstraktuak** errealagoak bihurtzen dira. Iñaki Segurola

Era honetara hartuta, formaren ideia aski ideia **abstraktua** da, eta gauzatu behar den ezaugarri fisikoetatik aski askea, gainera. Josu Zabaleta

Historiarekiko fideltasuna kontzeptu **abstraktua** izan zitekeen, bai, baina egiazkoak ziren Intxortan hil ziren mendizale gazte haiek. Xabier Mendiguren Elizegi

Ele handi hauek ez dira filosofo handien erran gaitzak edo pentsamendu **abstraktu** goren batzu, gure eguneroko bizitza baizik. Herria

Iduritu zait ikaste **abstraktuek** naturatik urrundu nautela. Piarres Aintziart

Garuna, makinaren kontrolgunea jatorriz, pentsamendu **abstraktua**, sormen artistikoa eta, oro har, jarduera mental sofistikatu erregular edo jarraitua ahalbidetzeraino garatu da. Irene Aldasoro

Adimen banatu edo **abstraktuak** forma hutsak direlako. Xabier Kintana

HALLE-ren 1959ko errusierari buruzko tesiaz geroztik, fonemak ez du berez leku beregainik Fonologia Sortzaileen analisian; halaz ere, hotsaren barne-aurkezpena ez da erabat aldatu Pragakoen ikuspegi **abstraktu** horretatik. Lourdes Oñederra

Idealak ez dira konbentzio **abstraktuetan** gauzatzen, inguratzen gaituen eguneroko bizitzan baizik. Berria - Kultura

Iduritu zait ikaste **abstraktuek** naturatik urrundu nautela. Piarres Aintziart

Etxetik urrun, aita samurtasun **abstraktu** baten ziurtasuna izan zen niretzat. Joseba Urteaga

Ikaratuta geunden, baina oso beldur **abstraktua** zen, ez dakit nola esan, eta ezin genuen sinetsi gauza benetan larririk gerta zitekeenik. Mikel Hernandez Abaitua

Agian mamia eman geniezaieke termino **abstraktu** horiei. Iñaki Mendiguren

Irudi **abstraktuak**, "soilak" indar berriz piztu du, beraz, irudi figuratiboari dagokionez antzinatik zetorren baina askotan ahaztu izan den gai bat: adierazgarritasunaren auzia. Josu Zabaleta

Imitaziozko artea, naturalista, *Einfühlung* hori den munduarekiko enpatiazko identifikazio-harreman horretan oinarritzen da; arte **"abstraktu"**, geometrikoa, berriz, bestelako afektuetan oinarritzen da, kanpoko munduarekiko harremanak eragin lezakeen larritasunari ordaina emango dion ordenaren premia psikologiko sakon batean. Josu Zabaleta

Arte **abstraktu** bat izan baldin badaiteke, zergatik lan egin da hainbesteko lehiaz irudikapenezko arte bat egiten? Josu Zabaleta

Kandinskyk margolan **abstraktuak** sortu zituen. Pello Salaburu

Zinema horretan horrelako erlazio **abstraktuen** konbinazioetatik (formen, iraupenen, koadraketen eta besteren konbinazioetatik) sortuko ziren esanahia eta emozioa. Josu Zabaleta

Euskal Herri libre batean bizi nahi dudala esaten dudanean, ez dut aberri aske bat bakarrik eskatzen -zenbaitentzat **abstraktu** samarra izan litekeen asmoa-, gizon-emakume

libreen gizarte bat amesten dut. Xabier Mendiguren Elizegi

Simulazio moduko edo irudikapen konkretu horiek ez dira hain egokiak beste pentsamendu mota batzuetarako: pentsamendu sinboliko, kontzeptual edo **abstrakturako**, kasu. Xabier Olarra

Informalismo **abstraktutik** intentsitate handiko kolore formak margotzera igaro zen. Berria - Kultura

Garbi zegoen Stephenek ikusmenezko analisi **abstrakturako** zuen ahalmena, baina zenbateraino axola zion "esanahi"ak? Xabier Olarra

Matematikak ere, nahiz hura izan zientzia guztien artean prestuena eta **abstraktuena**, etereoetan etereoena, bizi garen lur honetan ditu barneratuak bere sustrai sakonak. Jon Muñoz

Ama izatearekin alderatuta, aita izatea nahiko zeregin **abstraktua** dela, alegia. Oskar Arana

Aberria, ze **abstraktua** bere seme-alabak jaten dituen munstro egoista hori. Mikel Hernandez Abaitua

2 (adizlagunekin)

Nire obra ez da erabat **abstraktua**; forma figuratiboek indar handia dute. Berria - Kultura

Mundu naturaleko irudi ezagunen ordez, koloretako paper zati geometrikoz osatutako irudi erabat **abstraktuak** erabiltzea erabaki zuen, kolore askokoak. Xabier Olarra

Ez nuen inolako eszenarik ikusi, baizik kolore askoko irudi korapilatsu bat, sentsazio multzo zeharo **abstraktu** eta kategorizatu gabeko bat. Xabier Olarra

3 *iz* pintura abstraktua.

-Zer margotzen duzu, **abstraktua** ala... bestelakoa? Unai Iturriaga

Goazen hor parean dagoen taberna batera, han azalduko dizut **abstraktua** ala bestelakoa pintatzen dudan. Unai Iturriaga

4 ***abstraktuan*** *adlag* nolakotasunak eta egitateak gogoan hartuz, haietan hezurmamitzen diren objektuak gorabehera.

Sinbolizatzen ez den emozioak alde egiten du, eta errealitatea **abstraktuan** eta sinbolizaturik baizik ez da transmititzen: arteak abstrakzio-prozesu bat eskatzen du, beraz, beti. Josu Zabaleta

Bazen aukera, orobat, **abstraktuan**, dena bertan behera bota eta ospa egiteko, mugak artean irekita zeuzkaten herrialde urrun, mitiko haietako batera aldatzeko. Juan Garzia

Sexuaz bai, sexuaz oro har eta **abstraktuan** hitz egiten zenuten. Lourdes Oñederra

5 ***aljebra abstraktu*** *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi)*

Aljebra abstraktua egitura algebraikoak, eraztunak eta taldeak esaterako, ikertzen dituen matematikaren arloa da. ETC-entziklopedia

Aljebra abstraktuan Hermann Grassmann-ek bektore-espazioaren lehen bertsioa egin zuen eta George Boolek bakarrik 0 eta 1 zenbakiak erabiltzen duen aljebra ikustatu zuen. ETC-entziklopedia

Nire esparrua **aljebra abstraktuarena** da, eta Noether da arlo horretan zientzialaririk garrantzitsuena. ETC-prentsa

Aritmetika dator lehenik; gero, aljebra; gero, kalkulua; gero, ekuazio diferentzialak, **aljebra abstraktua**, analisi konplexua, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, multzo terminoa lehen hezkuntzako hasierako mailetan ikasten da eta talde terminoa, aldiz, matematikaezagutza askoz ere espezializatuagoa eskatzen duen **aljebra abstraktuaren** alorrean ikasten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***arte abstraktu***

Italian ikasten nengoela, giza gorputzean zentratu nintzen, baina Euskal Herrira itzuli eta **arte abstraktuari** heldu nion. Berria - Kultura

Gerra amaitu zenetik Franco hil arteko **arte abstraktu** eta figuratiboa erakutsiko du hirugarren erakusketak eta 80 eta 90eko hamarkadetan ezagun bihurtu diren artista espainiar gazteen lanak izango dira azken erakusketan. Berria - Kultura

Tentazio horrek, pinturaren bilakaerak areagotu baizik egin ez duenak, ez ditu **arte abstraktuaren** teorialariak bakarrik tentatu. Josu Zabaleta

Halako zero metatik aurrera, kopuruen eremua uzten zuten muntek **arte abstraktuarenean** barneratzeko. Joxan Elosegi

7 ***espresionismo abstraktu***

Irakurlea nekatzeko inolako asmorik gabe: kubismoa, dadaismoa, ez-figuratiboak, futuristak, onirikoak, suprematismoa, metafisikoak, surrealistak, neo-figurazioa, **espresionismo abstraktua**... Braque, Picasso, Léger, Picabia, Duchamp, Klee, Chagal, Rothko, Dubuffet, Bacon, Morandi, Calder... Anjel Lertxundi

espresionismo abstraktuaren keinuaren aldean, eguneroko objektuen ilustrazioa hobesten du pop arteak; mugimendu horren babesean sortutako lanak bildu ditu bilboko Guggenheim museoak. Berria - Kultura

Margolaritzarekin alderatuz gero, bere musika **espresionismo abstraktua** definitu badaiteke ere, AMM bezalako inprobisatzaile erradikalen aldean, ortodoxoagoa da bere proposamena. Berria - Kultura

8 ***objektu abstraktu*** *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Objektu abstraktua, materiarik ez duena, baina bere gain ekintzak defini daitezkeena da. ETC-entziklopedia

Hartara, gizarte-testuinguruari inolako erreferentziarik egin gabe iker litekeen **objektu abstraktutzat** hartu izan dute hizkuntzalariek mintzairaren auzia. ETC-literatura, saiakera

Orain aztertu beharko den esperientzia horretan, hari **objektu abstraktu** hori aberastuko zaio eta bizitzan ikusi dugun hedapena lortuko du. ETC-literatura, saiakera

Bi eratara burura daiteke instituzioa: lehenik, **objektu abstraktu** gisa, hau da, arau sistema baten bidez adierazitako jokabide molde posible gisa. ETC-literatura, saiakera

Joera bat, urrunegi eramanez gero, alde bat beste batetik bereiztera eta abstrakzio egitera eramaten duena, eta, oraindik urrunago eramanez gero, **objektu abstraktu** irudizkoak, edo entitate idealizatuak asmatzera, errealitatea fikzio artifizialen bilduma bat bihurtzera. ETC-literatura, saiakera

Zinez, **objektu abstraktuak** ditugu, baina, aldi berean, forma ezberdinak iradokitzen dituzte. ETC-prentsa

Azterketa gauzatu ahala, lehenengo eta behin domeinuaren objektu nagusiak identifikatzen ditu eta, ondoren, **objektu abstraktu** horiek zehaztu, eta klase bihurtuko ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Perpausetik, gramatiken **objektu abstraktutik**, komunikazio unitaterik txikienera, hots, enuntziatura, jauzi egin beharra dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abstraktu bat** (18); **abstraktu baten** (6); **abstraktu edo** (3); **abstraktu eta** (13); **abstraktu gisa** (3); **abstraktu hori** (3); **abstraktu samarra** (3); **abstraktua da** (11); **abstraktua dela** (3); **abstraktua den** (3); **abstraktua eta** (8); **abstraktua ez** (3); **abstraktua zen** (3); **abstraktuak dira** (6); **abstraktuak eta** (9); **abstraktuak eta egungo** (3); **abstraktutzat jo** (3); **arte abstraktu** (4); **arte abstraktua** (6); **arte abstraktuaren** (6); **esperimentu abstraktuak** (3); **esperimentu abstraktuak eta** (3); **espresionismo abstraktua** (4); **espresionismo abstraktuaren** (6); **eta abstraktu** (4); **eta abstraktua** (4); **eta abstraktuak** (5); **forma abstraktu** (4); **gauza abstraktu** (4); **hitz abstraktuak** (4); **ideia abstraktua** (3); **irudi abstraktua** (3); **irudi abstraktuak** (4); **kabinete abstraktua** (3); **lehendabiziko esperimentu abstraktuak** (3); **maila abstraktuen** (3)

---

abstraktukeria *iz* ideia abstraktua, gaitzesgarritzat hartua.

Baina, **abstraktukeriak** alde batera utziz, nire ikuspegia nire bizitzako pasadizo baten bitartez azaldu nahi nuke, halatan sakonki eta zehazki erantzungo baitiot zure proposamenari. Bernardo Atxaga

---

abstraktuki *adlag* era abstraktuan.

Ez aita horrela **abstraktuki** izateko, baizik eta zure seme-alaben aita izateko. Oskar Arana

Gramatikariaren lanaren emaitza nagusiak "hizkuntz egituraren teoria orokorra izan behar du, teoria horrek gramatika naturaletan erabiltzen diren lanabesak **abstraktuki** aurkeztu eta aztertzen dituelarik, hizkuntzon aipamenik egin gabe". Itziar Laka

Hemen existentzia aipatzean ez naiz mintzo iraupenaz, hots, **abstraktuki** ulertzen den existentziaz eta halako kantitate mota batez bezala; existentziaren izaera propioaz naiz ari. Piarres Xarriton

Balioak berak, zuzenki eta **abstraktuki**, guretzat ez dira "Jainkoaren hitzagoak" ala gutxiagoak (edo razionalagoak ala gutxiagoak), ertarotarrentzat erlijioak izan zitezkeen

bezala. Joxe Azurmendi

Nahiz eta, **abstraktuki** bederen, gaitzetsi egiten duen krudelkeria, ez daki bera izaeraz krudela edo goxoa ote den animalien aldera. Oskar Arana

---

abstraktutasun *(orobat **abstraktotasun** g.er.) izond* abstraktua denaren nolakotasuna.

Jesarlekuko zuloaren **abstraktutasuna** kontuan hartuta, pilotak hainbat norabide har zitzakeen; hala nola, ezkerra, eskuma, goia, behea... edo, beste era batera esanda, iparra, hegoa, ekialdea, mendebaldea. Unai Elorriaga

Esan lezake norbaitek ezetz, hiriko aurpegi zerrendek ez dutela hipnosia eta introspekzioa sortzeko beharrezkoa den **abstraktutasunik**. Bernardo Atxaga

Beldur handiagoa ematen dit Ohala/Jaeger-ena bezalako lan garrantzizkoak ahazteak edo Kiparsky-ren **abstraktutasun** mota bati buruzko giltzez ez gogoratzeak, zenbait fonologiaren geroko ibilbidea ulertzeko orduan. Lourdes Oñederra

Irudi sinbolikoa gauza abstraktuak irudikatzen dituena da ("irudiak berak baino **abstraktutasun** maila handiagokoa"). Josu Zabaleta

---

abstrakzio *(ETCn **2.487** agerraldi; orobat **abstrazio** g.er.)* **1** *iz* abstraitzea; izaki abstraktua.

Hizkuntza osatzen duten ikurrak ez dira **abstrakzioak**, gauzaki errealak dira. Isabel Arrigain

Bigarren saileko forma artistiko horiekin lotzen zuen Rieglek **abstrakzioaren** printzipioa. Josu Zabaleta

"Abstrakzioaren" poloa alde batetik, estilo zehatza inorganikoa duena [...], eta *Einfühlung* poloa bestetik, naturalismoarena, organikoa, biribiltasunean eta hiru dimentsioko espazioan oinarritua, joera eta xede indibidualak mamitzen dituena. Josu Zabaleta

Abstraktu izateak **abstrakzioaren abstrakzioz** ezin ulertuzkoa izatea nahi du esan XVII. mendeko frantsesean; abstraktua abstraktuegi da beti. Josu Zabaleta

Zirkulua, adibidez, munduko gauza bat da, ala **abstrakzio** matematikoa da? gauzaki konkretu baten ordez, ez dugu aurrean **abstrakzio** huts bat baino. Josu Zabaleta

Arteak **abstrakzio**-prozesu bat eskatzen du, beraz, beti. Josu Zabaleta

Arnheimek gauza segurutzat ematen du badakigula **"abstrakzio** maila" bat balioesten. Josu Zabaleta

2 *abstrakzio formal* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

De Chirico izan zen pintura metafisikoaren, **abstrakzio formal** erabatekoaren sortzailea. ETC-prentsa

Zeinuaren karaktere abstraktuak ez du arbitrariotik ezer, **abstrakzio formala** eta jakintza objektiboa batera doazelako. ETC-literatura, saiakera

3 *abstrakzio geometriko*

Loïs Schneider alargunak uste du Schneiderren obren beroak konkistatu zituela estatubatuarrak, '**abstrakzio geometrikoa** askoz hotzagoa zen. Berria - Kultura

Elkarrekin erlazionatuz, aipatzen saiatuko da, goitik behera doan "iter" proiektual batean kokatuz, hasi **abstrakzio geometrikotik** eta eraikuntza materialeraino iritsiz, eta tartean hartuz neurrien konkrezio aritmetikoa. Santiago Iruretagoiena

4 *abstrakzio liriko*

Schneider, 50eko hamarkada erakusketaren komisario Nicolas Moralesen esanetan, pintore frantziarra **abstrakzio lirikoaren** aitzindaria izan zen. Berria - Kultura

Haren lana Keinu informalismoaren edo **Abstrakzio liriko** mugimenduen barruan koka daiteke, naturalismoaren kutsua sarritan agertzen delako haren obran. Berria - Kultura

5 *abstrakzioa egin* *(orobat **abstrakzio egin** g.er.)*

Denbora ez da berez den zerbait edo gauzei determinazio objektibo gisa datxekien zerbait, eta beraz, beren begiespenaren baldintza subjektibo ororen **abstrakzioa egin** ondoren oraindik geratuko litzatekeen zerbait. Ibon Uribarri

Adimenak gauza osatuak analizatzen ditu, horien atalak bereizten, horien **abstrakzioa egiten**. Xabier Kintana

Gogoak gogoaz gogoaren **abstrakzioa egitea**. Jenaro Garate

Alfer-alferrekoa da gure ezagumenaren **abstrakzioa egiten** saiatzea, ezagumenez eginiko ezagumenaren abstrakzioa izango litzateke eta. Jenaro Garate

; aitortu behar izan da, halaber, deskribapen-multzo hori ezingo zela edozein modutan beste multzo hauetatik guztietatik atera **abstrakzioa eginez**. Xabier Arregi

Hala, geroago eta korapilatuagoa zen azterketa fonetikotik, **abstrakzio egin** ahal izan zuten. Lourdes Oñederra

Horrelako banaketara **abstrakzio eginez** iritsiko ginateke, eta bide horretatik, psikologia hutsa edo fonologia hutsa egingo genuke. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abstrakzio bat (4); **abstrakzio eta** (3); **abstrakzio horiek** (3); **abstrakzio maila** (6); **abstrakzioa egin** (3); **abstrakzioa egitea** (3); **abstrakzioa egiten** (3); **abstrakzioa eta** (5); **abstrakzioaren bidez** (4); **eta abstrakzio** (4); **eta abstrakzioa** (8)

---

abstrakzionismo *iz* abstrakziorako joera.

Lehenengo Mundu Gerraren ondoren psikoanalisiak alemaniar hizkuntzako herrialdeetan izan zuen zabalkundearekin batera, era bateko edo besteko **abstrakzionismoekin** eta, batez ere, espresionismoarekin, neurri batean bederen sekundariotzea, arrazionalizatzea alde batera utzi eta beren obran produkzio primarioak nahita azaleratzen uzten duten pintura-eskolak agertzen dira. Josu Zabaleta

---

abstratu ik **abstraktu**.

---

abstrazio ik **abstrakzio**.

---

absurdismo *iz* gauza absurdua.

Fikzioa ezeztatzen zuen, eta beraz **absurdismo** bat zen, barkatzen zidalarik leiho zilatuaren gibelean zegoen apezak. Piarres Aintziart

---

absurdo *(ETCn **2.501** agerraldi; orobat **absurdu** ETCn **1.103** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **absurdo** agertzen da)* **1** *izond* zentzugabea.

Barneratuta neukan Norak esaten zuena, erotu nintzela, jeloskor **absurdo** bat nintzela. Mikel Hernandez Abaitua

Irudi **absurdo** bat datorkit bat-batean. Josu Zabaleta

Egia ez dakienak egiaren antzekoa onartzen duela esatea baino gauza **absurdoagorik** ez dago. Imanol Unzurrunzaga

Espainiako hirietan ez dago apenas semaforik, eta, bat topatzen duzunerako, leku **absurdoren** batean dago, edo ez dabil. Iban Zaldua

Bistan da gizamin **absurdo** honek sinismenean dituela bere erroak. Patziku Perurena

Formulazio **absurdoak** estaltzen duen pentsamendu oso sinplea, Unamuno-ren "kriolismo"aren argitan argitzen da. Joxe Azurmendi

Galdetzen diot, halaber, lehia hori emankorra izan ote den, ala, jarrera **absurdoen** aurkako gehienak bezala, antzua. Bernardo Atxaga

Zer ari naiz borroka **absurdo** honetan, niri berdin zaidalarik? Piarres Aintziart

Darling jaunak atsegin **absurdo** bat sentitu zuen. Julen Gabiria

Egoera **absurdo** samarra zen. Bernardo Atxaga

Hauxe da gizarte modernoen tragedia: grina eznaturalak eta ezbeharrak ugaltzeko sistema **absurdo** huts bihurtu dela. Anjel Lertxundi

Gizabanakoek ez dakite bakarrik egoten, eta horregatik sortzen dituzte giza multzo **absurdoak** . Anjel Lertxundi

Absurdoa da sexuan gero eta sofistikazio gehiago behar izatea, berez gauza naturala izanda. Xabier Mendiguren Elizegi

Ongi handiak sorburu batetik eta txikiak beste batetik etortzea **absurdoa** da. Imanol Unzurrunzaga

Ero baten hizketaldiak, adibidez, bere egoerarekiko **absurdoak** dira, ez ordea bere eldarnioarekiko. Monika Etxebarria

Ni hantxe, neure garagardoa edaten eta oroitzeko ahaleginetan, ea, garai hartan, Hannarekin ere hain **absurdoa** izan ote zen, ea beti **absurdoa** izan ote den. Joxe Austin Arrieta

Handik aurrera **absurdoak** iruditu zitzaizkidan organizazioaren agiriak; are eta **absurdoagoak** atentatuak; arrotzak eta antipatikoak nire burkideak. Bernardo Atxaga

Edozein teoria berri zitzaigun deigarri, **absurdoena** izanagatik. Xabier Montoia

Ez duzu pentsatu behar esan berri dudana hiru baiespen horietatik **absurdoena** denik, hutsaren sineskerari dariona are harrigarriago eta **absurdoagoa** baita oraino. Xabier Kintana

Umekeria nahiko **absurdoa** . Joseba Sarrionandia

Erabat **absurdoa** zen egoera hura. Aritz Gorrotxategi

Guztiz **absurdoa** eta komikoa den arren, ez dut barre egiteko batere gogorik, nazka baizik. Patxi Iturritegi

Egoera **absurdo** samarra zen. Bernardo Atxaga

Emmak erantsi zuen, Fernandok ere **absurdotzat** joko zuela poliziaren hilketa. Lutxo Egia

Logika ez-**absurdoan** antolatutako hizkuntza du horretarako. Berria - Kultura

2 *iz* gauza absurdoa.

Parabola teologiko hau **absurdo** bat da. Joseba Zulaika

Zuen exegesia besoez **absurdoa** besarkatzen duen olagarro erraldoia da; funsgabea eta alferrekoa atxikitzen ditu. Jon Alonso

Absurdoaren poeta dela diote. Berria - Kultura

Lana, kontigentziaren eleberria izateaz gain, **absurdoari** eta abenturari buruzko ikerlan filosofiko serio baterako abiapuntua da. Monika Etxebarria

Horrela, ustelkeria dela medio, ustelezin egindako sorkari bat legoke, eta hau **absurdorik** handiena da. Imanol Unzurrunzaga

Hor irabiatzen dira **absurdoan** , beren hodeiaren azpian, zokozorriak beren harripean bezala. Josu Zabaleta

Egoera endekatu eta ustel horretan, gerraren **absurdoa** bere indar osoz agertzen da. Berria - Kultura

Gertaerek beraiek ongi adierazten dute egoeraren **absurdoa** eta krudelkeria. Berria - Euskal Herria

Barruan bat egiten dut gure existentziaren sentimendu tragikoarekin, bizitzaren **absurdoarekin** , beste edozein ordutan baino modu ankerragoan. Pako Aristi

Osagai horiekin, istorio eder bezain bitxia eraikitzen du Canok, askotan surrealismotik edo **absurdotik** gertu dagoena. Berria - Harian

Literaturaren ahotsek bizitzaren **absurdoaz** hitz egiten digute, bai, baina ahots horiek dira, hain zuzen ere, bizitzaren zentzuaren oihartzuna. Berria - Kultura

Ai, jauna, zuk badakizu, ondotxo jakin ere, ezin kabitu ahala **absurdoz** beterik dagoela bizitza, eta **absurdo** horiek ez dutela sinesgarritasunaren itxura beharrik ere; egiazkoak direlako, hain zuzen. Josu Zabaleta

Guda absurdoa da **absurdo** mordoa gertatzen delako egunero bertan. Koldo Izagirre

3 ***absurdoaren antzerki*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***42*** *agerraldi)*

Absurduaren antzerkia 1940ko, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan zehar hainbat europar eta estatubatuar antzerkigileek idatzitako antzezlan multzo bat da. ETC-entziklopedia

Ez zen desesperazioa sentitzen nuena, **absurduaren antzerkiko** pertsonaia bat nintzelako kontzientzia baizik. ETC-literatura, saiakera

Bere lorpenik handiena Europako joerak eta **absurduaren antzerkia** Txinan sartu izana dira. ETC-prentsa

Ia mende erdi geroago euskarara egokitzen den antzezlan hau " **absurduaren antzerkia** " deritzon estiloan sailkatu ohi da. ETC-prentsa

Absurduaren antzerkitik gertu daude zure idazlanak, ezta? ETC-prentsa

Absurduaren antzerkitik gertu dago Samara Velteren lana; umorea erabilita, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko gogoeta fina egitea da helburua. ETC-prentsa

Laster, antzerkiak erakarrita, Txejoven eta Samuel Becketten **absurduaren antzerkiak** batez ere, haien obrak muntatu zituen Los Angelesko antzoki batean. ETC-prentsa

Garai batean, hiru ildo nagusi ikusten ziren antzerkiaren munduan, hiru prozesu artikulatu: antzerki dramatikoa, antzerki epikoa, eta **absurduaren antzerkia** . ETC-prentsa

Eta behingoz benetako zentzua eman zion berak hainbatetan jorratutako **absurduaren antzerkiari** , bi protagonistek bizi duten egoera absurdua benetako gertakizunetan oinarrituz. ETC-prentsa

Aurten hogei urte Eugène Ionesco, **absurduaren antzerkiaren** beste aita, hil zela. ETC-prentsa

4 ***absurdora eramanez*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***9*** *agerraldi)*

Horrenbestez, Pikadero-ren egileak helburua primeran betetzen du, egunerokotasuneko egoerak **absurdora eramanez** film atsegina eta maitagarria doitzea lortu baitu. ETC-prentsa

" **Absurdora eramanez** " bezala ezagutzen den argumentazio mota da. ETC-prentsa

Kontua **absurdora eramanez** : zergatik ez asmatu emotikono bat ironiarentat ("ironia da!", abisatzen digute orain irratian-eta), edo metaforarentzat, edo hiperbolearentzat. ETC-literatura, saiakera

Edo argudioa **absurdora eramanez** , nola litzateke posible eraikin publikoetan Europar Batasuneko bandera jartzea Konstituzioak eta 39/1981 Legeak horren inguruan ezer ez diotenean? ETC-zientzia, zuzenbidea

Jotzen da, **absurdora eramanez** , sqrt2 zenbaki arrazionala dela; orduan, definizioz, a,bineta existitzen dira, biak ez-nuluak, non sqrt2=a/b den eta zkh (a,b)=1 (hau da, a/b Zatiki laburtezin zatiki irreduziblea da). ETC-entziklopedia

5 ***umore absurdo*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***30*** *agerraldi)*

"Nik egiten dudana **umore absurdua** dela esaten didate", dio Manzisidorrek, esaten dioten hori ukatu gabe. ETC-prentsa

Igandeetako ajeak sortzen digun **umore absurduaren** indarrarekin ekiten zionagu beti bezalakoa izango den asteari. ETC-prentsa

Kontenedore baten istorioak edo Torito bravo lanetan erabilitako **umore absurdua** alboratu du egileak kasu honetan. ETC-prentsa

Baina horrek ez ditu behar bezala azaltzen zenbait adierazpide umoretsu, hitz-jokoak edo **umore absurdua** esaterako. ETC-prentsa

Era berean, antzerkia da, jolasa; **umore absurdua** eta poesia artifizioak izatera irits daitezke, eta hala ere oso gureak izan". ETC-prentsa

Umore absurdua erabiliz, gaur egungo gizartearen kritika egiten dute. ETC-prentsa

Umore absurdua barnean daramagu, ezberdintasuna da gaur egun testuinguru jakin bat markatzen dugula. ETC-prentsa

Umore absurdua lantzen dugu hemen ere, eta kabaretean bezala harreman zuzena dugu ikus-entzuleekin". ETC-prentsa

Umore absurduzko hitz-jokoen hartu eman batean mamitu dute saioa. ETC-prentsa

Sekzio ezberdinak ditu, bai marrazki bizidunez eginikoak bai eta pertsonak antzeztuak eta **umore absurdu** eta surrealismo surrealista erabiltzen du. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

absurdo bat (7); **absurdo hori** (3); **absurdo pop** (3); **absurdoa da** (17); **absurdoa dela** (4); **absurdoa eta** (4); **absurdoa iruditu** (4); **absurdoa iruditzen** (4); **absurdoa iruditzen zitzaidan** (3); **absurdoa izan** (4); **absurdoa zen** (3); **absurdoak dira** (3); **absurdoak direla** (4); **absurdoak eta** (3); **absurdoaren absurdoa** (3); **absurdoaren absurdoa** (3); **absurdoaren bidezko** (5); **absurdoaren bidezko arrazoiketa** (3); **absurdotzat jo** (4); **egoera absurdoa** (4); **egoeraren absurdoa** (3); **eskubideak absurdoak** (4); **eskubideak absurdoak direla** (3); **eta absurdo** (4); **eta absurdoa** (4); **eta absurdoagoa** (3); **hizkuntza eskubideak absurdoak** (4)

absurdoki *(orobat **absurduki**) adlag* era absurdoan.

Orain ezin nuen lo egin, Norarekin pasatutako urte guztiak botako nituen pikutara **absurdoki**, psikologoari sinetsiz gero beste batzuk ez ziren ni bezain mendekuzaleak, gaindi zezaketen egoera, askotan oso harreman estua sortzen omen zen egoera horretatik, denbora behar zen noski. Mikel Hernandez Abaitua

Gainera, kontuak aterata, **absurduki** altua zen aginduriko dosia: Gelara igo nintzen; **absurduki** atea giltzaz itxi eta burdinazko ohe meharrera ahozgora egotzi nuen neure burua. honetaz konturatzeak, **absurduki**, bere banitatea balakatu zuen, Erotu egin naiz, murmurikatu zuen. Juan Garzia

---

absurdotasun *iz* absurdoa denaren nolakotasuna.

Finkatu egin nahiko nuke hemen **absurdotasun** horren izaera absolutua. Monika Etxebarria

Izan ere, ondoren ulertu ahal izan dudan guztiak funtsezko **absurdotasun** horretara darama. Monika Etxebarria

Elkarrekin oheratu ondoren beste zerbait aurkitu beharko dute beren existentziaren **absurdotasun** ikaragarria estaltzeko. Monika Etxebarria

absurdotasun nabarmena darion ergelkeria bat baliogabetzearren. Xabier Kintana

---

absurdu ik **absurdo**.

---

absurduki ik **absurdoki**.

---

abszesu *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi) iz* gorputzeko tokiren batean gertatutako zorne pilaketa.

Abszesu pelbiko batengatik ospitaleratu, eta larrialdiko ebakuntza egin zioten Habanan. ETC-prentsa

Itxura horixka eta opakoa duen isurkari bat da, zaurietan, **abszesuetan** eta ultzera infektatu edo handitu gaiztotuetan agertzen den likido-modukoa. ETC-prentsa

Bakterio enterikoak identifikatzeko kit-ak, esaterako, ez du balio **abszesu** batetik bakartutako koko gram-positibo bat identifikatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hematoma eta **abszesu** epidurala bezalako konplikazioak arraroak baina oso larriak izaten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Garuneko **abszesu** bat ikusten da lobulu frontalean, sinu frontalaren atzean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Guruin hauek infekzioetarako joera azaltzen dute ehun linfatiko barreiatuaz baitaude gaineztaturik, eta **abszesu** perianalak edo fistulak sor ditzakete. ETC-zientzia, zuzenbidea

Abszesu eta kolitis fulminantean espektro zabaleko zain-barnetiko antibiotikoak eman behar dira. ETC-entziklopedia

---

abtsolutu ik **absolutu**.

---

abtsolutuki ik **absolutuki**.

---

abudo ik **agudo**.

---

abulia *iz* gogorik eza, gogogabetasuna, gogogabekeria.

Volksgeist espainola gaixo dago (petrikilo bakoitzaren arabera gaitza **abulia** da, atonia, anemia, indibidualismo akrata, bekaizkeria, etab.). Joxe Azurmendi

---

abuliko *izond* abulia duena.

Autobus baten buztan aldean subertatu nintzen, burokrata **abulikoak** leku ez oso bukoliko bati buruz zeramatzan batean, eta han funanbulu burlati bat burua bularretik burruti eta buru-estalki bat zubena, ezin buruturik, builaka hasi da, bultza egiten zion burgoburu baten aurka. Xabier Olarra

---

aburgesatu *izond* burgestua.

"Monovolumen" erraldoietan goaz mendi puntako ermitarik urrunenak bisitatzera, eta neguan klase altuagokoak izan nahi luketen Espainia osoko pera, pijo, eskuindar moderno eta ezkertiar **aburgesatuekin** batera eskiatzera goaz. Pako Aristi

---

aburna *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* ibai arrain txikia, mutur-irtena, arrea eta jateko ona *(Chondrostoma toxostoma* eta *C. polypelis)*. ik **loina**.

"Alburnus" generoko animalia da. Arrainen barruko Actinopterygii klasean sailkatzen da, Cyprinidae familian. Euskaraz "**aburna**" izena du. ETC-entziklopedia

---

aburu *(ETCn **12.231** agerraldi)* **1** *iz* iritzia, ustea; funts handirik gabeko ustea, irudipena. ik **aieru**.

Hots, lurgintzatik bizi diren, animaliekin harremanak dituzten, naturalezari, landare eta zuhaitzei lotuak dauden, basoan eta mendian bizi direnen joan-etorri eta **aburuak**. Patziku Perurena

Maiz egiten diogu burla bere memoria, irizpide eta **aburu** faltagatik, eta behin baino gehiagotan egiten dugu barre jaso berri dituen mezuak desitxuratuta eta guztiz nahastuta bihurtzen dituenean. Josu Zabaleta

Bost solasaldiak dira txinpartatsu eta jakingarriak, baina harrigarriena, niri, Joseba Sarrionandiarena egin zait, beharbada beste lauren iritzi eta **aburuak** ezagunagoak nituelako hainbat interview, mahai-inguru eta bestelako hitzaldi-mintzaldietatik; bosgarrenak, berriz, bere derrigorrezko urruntasun horretatik, txunditu egin nau hainbat gogoeta eta pasadizorekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Aitortzen dut gauza guztiak Jainkoaren halako nahimen ezazol baten mende eta guztiak Haren baimenaren gomendio uzten dituen **aburu** hau ez doala hain oker nola baitoa Jainkoak gauza guztiak ongiarengatik egiten dituela diotenen iritzia. Piarres Xarriton

Marc Legasseren idazlanak ezagutu izan banitu bestelakoa izango zen igual nire **aburua** baina garai hartan hitzez hitz hartua nuen neure fede berriaren kateksima, eta gogoan dut behin batez, trenean, Legorretako Joxemarittorekin eztabaidan nola aritu nintzen, aberria zela eta ez zela; ez da egia eztabaidatu genuenik ere: nork bere iritzia bota zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Murmurioa **aburu** garatzen ari zen. Itxaro Borda

Emakumeak, berriz, bere **aburuak** jaregiten segitzen zuen. Anjel Lertxundi

Bitxikeria horren inguruan moldaturiko **aburu** ezberdinen artean, Al--Zaharia Fedallah siriarrarena gomutatu nuen bat-batean. Aritz Gorrotxategi

Aipatu berri dudan futbol albiste horretan, esate baterako, **aburu** hitza agertzen da. Koldo Zuazo

Fededun eta analistaren **aburua** ematen digu DenisVasse-k. Piarres Aintziart

Gezurraren gerizpeko **aburu**-manipulazioa susmatuz, Jean Marie fabrikatik jalgi zen astiro, Roland, Sebas, Roger gorritua eta langile batzuk gibeletik zeuzkala. Itxaro Borda

Mundua zer den burutik ateratzen da, ez mundutik burura sartzen (nahiz buruaren "iturriez" **aburu** diferenteak kabitzen diren gero). Askoren artean

Eta horixe da haien **aburua**, I. baiespenean erakutsi duguna, eta horretatik datoz, nahitaez, II. eta III. baiespenak ere. Xabier Kintana

Hamabortz urtetan ere parte txarrekoa iduritzen zitzaidaan haren orizta puta hori, eta handik goiti egin dituen guztiek ez zidatek baietsi baizik hasierako **aburua**. Aingeru Epaltza

Maisuaren **aburua** asmabidetu baino ez zuen egin Herostratosek. Juan Garzia

Sesioa, zatiketak, **aburu** desberdintasuna, aurrirtziak bizitzaren zuntzari itsatsiak, oh hain goiz hasi behar zutenik, deitoratu zuen Ramsay andreak. Anton Garikano

Alajaina, hain din bere gure adin honek arrastotik harago jotzea geure **aburuetan**, nola gauza arrunta baita gaztegoarengan aski zentzu ez izatea. Juan Garzia

Zenbat buru, hainbat **aburu**, orduan ere. Joan Mari Irigoien

Funtzionarioen **aburuetan** zenbat eta ziurgabetasun eta zalantza handiagoa atzeman, hainbat eta irmotasun eta ziurtasun handiagoa erakusten zuen berak. Jose Morales

Horregatik, bizitzari eta askatasunari buruzko gauzarik oinarrizkoenetan mila hutsegiteren erditik igaro arte, gaitzak jasaten guztiz nekatu eta aspertu arte, gizakia ez da jarriko desegokitasun zapaltzaileak konpontzen eta egiarik nabarmenenak onartzen, hauek berehala ihes egiten baitiete adimen laburrei, ez daudelako gauzak aztertzen ohituak, **aburu** guztiak multzoan jasotzen baizik, eta tradizioz jokatzen dutelako gehiago azterketaz baino. Juan Martin Elexpuru

Paul Valéry-ren gaitzerizpen bat, Jacques Reboul-en Errealitatea deusezteko orrietan. (Gaitzerizpen hori, derragun parentesi artean, Valéry-ri buruz benetan zuen **aburuaren** alderantzi doi-doia da. Juan Garzia

Baita ere bestelako **aburuak** utzi, ospedunen aginduak gainditu eta kalte handiak jasan behar izanda ere - heriotza bera ere bai - kontzientziaren esanera jardun, maitatzeari inoiz inola uko ez egitearren. Jenaro Garate

Bi hilabete lehenago bezain zorrotz aditzera eman zuten beren **aburua**: Aingeru Epaltza

Bizkitartean, **aburu** hori ahantzi gabe, badut uste beste arrazoi bat bazela Aita Sainduen aitzinean aipatu ere behar ez zena, are gutiago Pio V.aren aitzinean, hain baitzen Aita Saindu hau Elizaren larderiaz axolatua. Piarres Xarriton

Nola hartu beren borondatez, beren **aburuari** jarraiki, beren ongi nahiari men eginez, eman ez zidatena? Joxan Elosegi

Gisakoa izanen da behatzaileen **aburua** haietaz. Xabier Montoia

Bihotza handi, ez jakin zer erran, Kattinari so nengokion, ez nekien nola eman herbaltzen ninduen munduarekiko ene **aburua**. Itxaro Borda

Hori da zapatain xume baten **aburua**, goi mailako ikasketa haundirik gabe bizi izan denarena... Michel Oronoz

Txostenak, **aburu**-galdaketak, prentsaurreko sainduak, gizarte zibileko kidez osatu lantaldeak, instituzioen parte hartze goretsiak, mahai inguru sakonak, irrati emanaldi sonatuak, denak estrategiaz, Zuberoako "jia" aieruarekin ahoskatzea hobe naski, mintzatzeko aitzakiak ziren. Itxaro Borda

2 (buru hitzarekin erkaketan)

Bistakoa da buru beste **aburu** dagoela. Hasier Etxeberria

Poliziaren jokabidearen arrazoia asmatzen saiatzen ziren eta horrek zein ondorio izan zitzakeen, baina, entzun dudanaren arabera, zenbat buru hainbat **aburu** zegoen. Urtzi Urrutikoetxea

Bai, badakit jende mota guztiak aurki daitezkeela Jainkoari buruzko eztabaidan: batzuek oinarritzat dute; beste batzuek ezerezean dute; hauek Jainkoaren behar gorria dute; haiek traban sentitzen dute: zenbat buru, hainbat **aburu**. Joan Mari Irigoien

Gutarik bakoitzak, bere begiz ikus dezake orduan, usteak ustela duela erdia, bai eta ere buru bezainbat **aburu** badabilela munduan: horrela baitira gure zalantzak adimenaren azken bazterreraino hedatzen. Piarres Xarriton

Banuen tiradera batean pergamino iruditatu bat, zeinaren lege-indarrez, letrakera dotorezko hitzez, Primo Levi, judua arrazaz, Kimikako lizentziatu-agiriaren jabe egiten baitzen, goreneko kalifikazioz: ez zuen dokumentuak, horrenbestez, ez buru eta ez **aburu**, erdia loria eta erdia laido, erdia absoluzio eta erdia kondenazio. Juan Garzia

Esaterako, litekeena da mahai baten inguruan egungo ekonomia arazo bati buruzko hausnarketa egiteko ekonomilari talde bat osatuko balitz, esaerak dioen bezala, buru adinbat **aburu** izatea. Iñaki Heras

Buru bezainbat **aburu** izango bailitzateke. Pello Salaburu

Dena dela, buru beste **aburu** zegoelako edo, ez zuen berehalakoan inolako urratsik egin, eta gertakari harrigarriak - baina gure artean ohiko samarrak - ikusi ziren tarte horretan; gaztelaniaz idaztea, esate baterako. Koldo Zuazo

Estatuburu zein enpresaburu, hainbat buru baina **aburu** bakarra dago han: xoxa. Joxerra Garzia

3 ***aburuz*** (-en atzizkiaren eskuinean) ustez, iritziz.

Gasteiz Desmilitarizatua plataformaren **aburuz**, atzoko ekitaldia ez zen ikuskizun soila izan. Berria - Euskal Herria

Hautetsi batzuen **aburuz** Laborantza Ganberaren eskaria ez dagokio Biltzarrari eta gaia ez eztabaidatzeko eskatu zuten. Berria - Euskal Herria

Hemezortzigarrenekorik, ohartzen gara Joanes Parisekoaren eta Petri Aillykoaren **aburuz** sei partetan zatitzen dela Elizaren boterea: Piarres Xarriton

Nire **aburuz**, egiatan gertatu ote zen, posibilitate gutxi dago. Jon Alonso

Halaxe ezagutu zuen Sarak Intxaurrondoko gazte hura: Edu Elizalde alegia, Sarari atzetik zebilkiòn mutila, neska guztien **aburuz**. Joan Mari Irigoien

Beharbada, batasun hori, askoren **aburuz**, ez soilik ohituraren eta idatzizkoaren artekoa, ezpada aurreko erregimenaren eta erregimen berriaren artekoa. Andres Urrutia

Baina ez iezadazu eska neure **aburuz** beste egin dezadan. Joxerra Garzia

Literatur kritikari batzuen **aburuz**, landare hori aukeratzea, pasealekua izendatzeko, ez da Aldecoak ustekabean eginiko zerbait: aitzitik, zentzu metaforiko argia edukiko luke. Iban Zaldua

Konfuzioren eta haren ikasleetariko baten arteko eztabaida batean, ikasleak Maisuari galdetzen dio ea zer den, beraren **aburuz**, ondo gobernatzeko gauzarik beharrena. Juan Garzia

Beste batzuen **aburuz**, aldiz, gizakia gaiztoa da berez, eta, gizarterik ez balego, etengabeko borrokan jardungo luke beste gizakiekin. Joxerra Garzia

Errepikapena ez da geure **aburuz** lortzen dugun zerbait; gertatu egiten zaigu. Joseba Zulaika

Kratesen **aburuz**, gizona ez zen inondik inora barakuilu bat ez karramarro ermitau bat. Juan Garzia

Homosexualek beren hitzordu likitsentzat, lau sasitarren **aburuz** alabaina, erabiltzen zuten geltoki aldeko txabola batean, atzeman zuten nortasun agiri faltsu egilearekin egon ziren ondoko egunetan, sos pakete ederra utziz. Itxaro Borda

Ume-umetan, nahiko normala zirudien, baina, amaren **aburuz**, lau-oinetan ibiltzen zenetik beretik, kaxkarra izan zuen ikusmena. Xabier Olarra

Itoizko Koordinakundeko kide Jose Luis Beaumonten **aburuz**, urtegia txikitzea politikarientzat "irtenbide dotore bat besterik ez" da. Edurne Elizondo

Gorostiagaren **aburuz**, latinezko parentaliatik etor daiteke. Pello Zabala

Elsaren **aburuz**, Albertoren ideiak ez ziren ongi egokitzen egungo emakumearen errealitatera. Josetxo Azkona

Baina nire **aburuz** egiaren hurbilena denez gaurdaino, gorde ezina egiten zait nire kontzientzian. Jenaro Garate

Zaletasuna ederki betetzen dute, baina ikertzaileak behar duen haratago joateko irrika zapuzten dute, gure **aburuz**. Iñaki Arranz

Horixe da japoniarren **aburuz** ezkontza hoberena: emakumeak gizasemeak baino esperientzia gehixeago du. Joxan Elosegi

Egokiena izango da, gure **aburuz**, tokian tokikoa daukanari sasoi egokian erostea. Edorta Agirre

Baina, betiere Aranaren **aburuz**, kartzela aldiak ez omen zuen emakumea "onbideratu", eta orduan senarrak bere ohore lohitua odolarekin garbitzeko beharra sentitu zuen. Martin Anso

Jazinto Rivas izan baitzen, lekuko eta protagonista guztien **aburuz**, trikitilarien errepertorio urria berritu eta aberastu zuena. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aburu eta (3); **aburu ikerketa** (6); **baten aburuak** (4); **buru bezainbat aburu** (5); **buru bezenbat aburu** (3); **buru hainbat aburu** (4); **eta aburu** (5); **eta aburua** (3); **eta aburuak** (4); **hainbat aburu** (12); **pailazo baten aburuak** (4)

abokatuen aburuz (3); **aburuz ere** (4); **aburuz erredakzioa** (3); **aburuz ez** (3); **aburuz ez da** (3); **adituen aburuz** (7); **alderdien aburuz** (3); **alvarezen aburuz** (3); **antolatzailearen aburuz** (3); **aralarren aburuz** (9); **aranaren aburuz** (4); **arduradunen aburuz** (4); **aresen aburuz** (5); **aristotelesen aburuz** (4); **askoren aburuz** (5); **azkarateren aburuz** (6); **azkarragaren aburuz** (5); **balzaren aburuz** (3); **barrenaren aburuz** (4); **batasunaren aburuz** (18); **batzordearen aburuz** (4); **batzuen aburuz** (11); **bere aburuz** (73); **beste batzuen aburuz** (6); **bilbaoren aburuz** (3); **bozeramailearen aburuz** (3); **buenen aburuz** (3); **buruaren aburuz** (5); **ccooren aburuz** (4); **de duranaren aburuz** (3); **diezen aburuz** (8); **duranaren aburuz** (3); **eajren aburuz** (6); **eako presidentearen aburuz** (3); **earen aburuz** (5); **eeren aburuz** (3); **egibarren aburuz** (3); **egigurenen aburuz** (4); **ekologisten aburuz** (4); **elaren aburuz** (5); **eledunaren aburuz** (6); **elkarri ren aburuz** (7); **elkartearen aburuz** (5); **en aburuz** (4); **ene aburuz** (16); **epailearen aburuz** (4); **epaileen aburuz** (4); **erraztiren aburuz** (11); **eta laben aburuz** (3); **euren aburuz** (10); **eusko jaurlaritzaren aburuz** (3); **fernandezen aburuz** (4); **garciaren aburuz** (4); **gehienen aburuz** (4); **gilen aburuz** (8); **gobernuaren aburuz** (3); **goirizelaiaren aburuz** (3); **gure aburuz** (14); **guztien aburuz** (5); **haien aburuz** (20); **haren aburuz** (53); **horien aburuz** (4); **horren aburuz** (5); **ibarretxeren aburuz** (6); **idazkari nagusiaren aburuz** (4); **idazkariaren aburuz** (3); **imazen aburuz** (13); **irakaslearen aburuz** (5); **iztuetaren aburuz** (3); **jaurlaritzaren aburuz** (8); **kidearen aburuz** (5); **kideen aburuz** (6); **laben aburuz** (4); **larreinaren aburuz** (4); **lasagabasterren aburuz** (3); **lehendakariaren aburuz** (5); **lopezen aburuz** (13); **madrazoren aburuz** (10); **matuteren aburuz** (3); **nagusiaren aburuz** (5); **nire aburuz** (25); **ordezkariaren aburuz** (4); **otegiren aburuz** (13); **plataformaren aburuz** (4); **ppren aburuz** (5); **presidentearen aburuz** (8); **pse eeren aburuz** (3); **rafa larreinaren aburuz** (3); **raxoiren aburuz** (4); **ren aburuz** (7); **rojoren aburuz** (5); **ruizen aburuz** (4); **sailburuaren aburuz** (6); **san gilen aburuz** (8); **sanzen aburuz** (3); **sarasuaren aburuz** (3); **saren aburuz** (3); **segiren aburuz** (5); **sindikatuaren aburuz** (7); **sindikatuen aburuz** (8); **taldearen aburuz** (4); **udalbiltzaren aburuz** (4); **ugtren aburuz** (3); **zabaletaren aburuz** (5); **zenbaiten aburuz** (5); **ziarretaren aburuz** (3); **zure aburuz** (3); **zuzendariaren aburuz** (4)

---

aburukeria *iz* uste edo iritzi oker gaitzesgarria.

Ezjakintasuna, ordea, eta **aburukeria**, oraindik, oso zabaldurik daude. Joxe Austin Arrieta

---

aburukide *izond* aburu berekoa.

Gipuzkoar, arabar eta bizkaitar batailoiek, nirekin **aburukide** antza, goitik iristen zitzaizkien aginduei jaramonik ez eginez, etsitzea erabaki zuten. Txillardegi

---

aburumenka *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* aburuen arabera, iritzien arabera.

-Jagdalakeraino iritsi zineten karabanarekin -esan nuen **aburumenka** -, su horiek piztu eta gero. ETC-literatura, saiakera

Ohartua naiz nirea baino buruargitasun handiagoa behar litzatekeela halako galdera bati erantzuteko, baina, **aburumenka** mintzatzera obligatua banintz, esango nuke hain zuzen ageriko dramarik edo espektakulurik ezak egiten duela berezi lur baten edertasuna. ETC-literatura, saiakera

---

abusagailu *(orobat **abusailu**) iz ipar* jostailua, jostatzeko gauza.

Eta asmatu dut, karta jokoa zutenez geroz elkarren **abusailu**, musean ari zirela. Piarres Aintziart

Oporretako denbora hortan gure herriko elkarteek moldatzen dituzte aratsetako jendeen **abusagailuak**. Herria

---

abusagarri *izond/iz ipar* jostagarria.

Buruz-buruka bat egin dute Ezcurra eta Sorhuet bi gazteek jendearen **abusagarri**, lehen horrek irabaziz 15-9. Herria

---

abusailu ik **abusailu**.

---

abusatu[1], abusa, abusatzen **1** du *ad* zerbaitez mintzatuz, gehiegi baliatu.

Hitz gehiegi gastatu dut poesiaren defentsan, bai, eta arrazoia daukazue, irakasleok ez genuke irakaskuntza sistemak ematen digun eskubideaz **abusatu** behar. Pako Aristi

Beren ordezkatzaile-izaeraz **abusatuko** balute, kargua utziaraziko zaie atzera etxera bidaliz. Iñaki Iñurrieta

Diziplina-gabezia tipikoa erakutsi zuten enperadoreagana iristeko erraztasunaz **abusatzean**. Iñaki Mendiguren

Mende guztietako esperientziak erakusten digu gizonak beste ezertaz baino gehiago **abusatu** duela zeruaren dohai eder honetaz. Juan Martin Elexpuru

Pikaroek edo azpisugeek, beren herrikideen sineskortasunaz **abusatuz**, beren eldarnio barregarriak hedatu dituzte. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hemezortzigarren mendean, Indian zeuden ingelesek herrialdeko ohiturei jarraitu zieten, botereaz **abusatzekoa** baztertu gabe. Iñaki Mendiguren

Erabat onartzen dut, aitzakiarik gabe, kexa aurkeztu duenaren giza eskubideak larriki urratu ditudala, eta, orobat, unibertsitateak nire gain utzitako autoritateaz ere **abusatu** egin dudala. Oskar Arana

Elkarte pobre baten buru eta besteentzat eredu denez, ez du diruaz **abusatu** behar. Askoren artean

2 sexualki bortxatu.

Bai, erruduna dela dio; baina zehaztasunak galdetuz gero, bat-batean aitortuko dizu berak ez duela emakume gazte batez **abusatu**, ezin eutsizko irritsa baino ez omen zen izan. Oskar Arana

Zenbat urte eskatzen ote zuten adin txikikoez **abusatzeagatik**? Horrexek kezkatzen zuen. Patxi Iturritegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abusatu behar (3); **abusatu egiten** (3); **abusatu zuela** (3)

---

abusatu[2], abusa, abusatzen da *ad ipar* jostatu, dibertitu.

Zaharrena soldadu talde baten buruzagiarekin solasean **abusatu** zen, anartean besteek beren bideari segitzen zutela, karga biltegi batean desagertzeko. Elena Touyarou

Haatik astirian elurrak hasi duelarik kanpoa xuritzen ez da nehor sobera **abusatu** zer gerta ere. Herria

Zaharrena soldadu talde baten buruzagiarekin solasean **abusatu** zen, anartean besteek beren bideari segitzen zutela. Elena Touyarou

---

abusatzaile *(ETCn **117** agerraldi, horietatik **87** azken sei urteetan) iz/izond* abusatzen duena.

Azaldu dugu, baita ere, sorkariei ezin zaiela egotzi gizakiek haiek oker erabiliaren errua; **abusatzaileari** leporatu behar zaio errua. Imanol Unzurrunzaga

Umetako jolasetan kokoteko gehien jasotzen zituzten berberak, garaian garaiko señoritoaren zakur **abusatzaile** bihurtuak. Jon Maia

---

abuso ik **abusu**.

---

abustu ik **abuztu**.

---

abusu *(orobat **abuso** g.er.)* **1** *iz* gehiegizko erabilera, gehiegikeria.

Alkohol eta drogen **abusua**. Pello Salaburu

Oroimenaren **abusua** kondenagarria bada, berebat esan beharko dugu haren kontrako joerari buruz Zilegizkoa ez den erabilerari **abusua** deitu behar zaio edo gehiegikeria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Abusua zuzentzerakoan, zuzenketaren beraren arriskuak ikusi behar dira. Andres Urrutia

-Gobernu antidemokratiko eta atzerakoi batekin -esan zuen Pepponek-, **abusua** lege bihurtzen da. Koldo Biguri

Sasiak kendu eta etxea gorde, **abusua** kendu eta estatua begiratu. Koldo Izagirre

Gure helburua, dibortzioari buruzko arauetan, **abusua** baztertu eta ezkontza babestea izan da, ohituren askakeria zokoratuz. Elizen arteko biblia

Abu Graibeko kartzelan preso irakiarrek **abusuak** jasan dituztela jakinarazi dute. Berria - Mundua

Alren ikerketak agerian ezarri du emakume txetxeniarren aurkako erasoak eta **abusuak** nabarmen gehitu direla azken bi urteotan. Eta askoz ere doilorragoa da gizaki baten gogoz kontrako **abusu** sexuala, honek halako zantarkeria bortxaz burutu nahi duena hiltzea baino. Berria - Mundua

Onartu behar da, ondorioz, transferentzia honetan **abusu** morala dagoela, eta hori izaten da, hain zuzen, intelektualak kritikatzeko ohiko argudioa. Berria - Kultura

Zanpaldiak, erailketak, klitori kenketak, sexua dela eta egindako abortu aukeratuak, sexu bortxaketak, **abusu** psikologikoak. Pello Salaburu

Espainiako Gobernuari, hala, **abusu** larriak ikertzeko behin-behineko erakunde ofizial bat eratzeko eskatzen dio. Berria - Harian

Agundezek aurkeztutako lanaren arabera, "Polizien balizko **abusuak** desager daitezen, lehenik horiek gertatzeko aukera badela onartu behar da". Berria - Euskal Herria

Iazko maiatzetik atxilotu irakiarren aurkako 10 **abusu** kasu izan dira. Berria - Mundua

Defentsa Departamentuak **abusu** eta tortura salaketen erdiak soilik ikertu dituela dio txostenak. Berria - Mundua

Erresuma Batuko 56 urteko gizon bat atxilotu eta auzipetu dute, Bombayko hegoaldeko (India) umezurztegi bateko haurrei sexu **abusuak** egiteagatik. Berria - Gaiak

Sexu **abusuak** emakume batek leporatu dizkio, eta 60ko hamarkadan izan zirela esan du, bera adingabea zenean. Berria - Gaiak

2 *abusu emozional* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Mugako nortasunaren nahastea jasateko arrisku-faktoreen artean honako hauek kokatzen dira: abusu sexual eta fisiko jarraituak, **abusu emozionala**, etxeko indarkeria, gurasoen abandonuak, zaintzaileen baztertze emozionala, substantzien abusua, nerabezaroko krisialdia edo gurasoen kriminalitatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *abusu psikologiko*

Hor biltzen dira zanpaldiak, erailketak, klitori kenketak, sexua dela eta egindako abortu aukeratuak, sexu bortxaketak, **abusu psikologikoak**, eta abar. Pello Salaburu

Abusu psikologikoa: irain edo hitzezko eraso bidez min emozionala edo estresa sortzea; depresioak, nahasmendua eta urduritasuna, esaterako. Berria - Euskal Herria

4 *abusu sexual*

Eta askoz ere doilorragoa da gizaki baten gogoz kontrako **abusu sexuala**, honek halako zantarkeria bortxaz burutu nahi duena hiltzea baino. Imanol Unzurrunzaga

5 *eskubide abusu* *(corpusean ez dago; ETCn **34** agerraldi)*

Stop Desahucios elkarteko kideak dira, eta Avilesen (Asturias, Espainia) etxegabetze bat atzeratzeko "**eskubide abusua**" egin zutela uste du epaiak, hau da, prozesua ahalik eta gehien luzatzen saiatu zirela. ETC-prentsa

Epaimahaiko magistratu guztiak errefusatzeko defentsaren eskaera aztertzeko goiz osoa hartu zuten, eta tramiterako ez onartzea erabaki zuen azkenean, defentsaren "**eskubide abusuagatik**". ETC-prentsa

Eskubide abusuei eta ekonomian aurreratzeko ezintasunei aurrez aurre, etorkizuna euren eskuetan hartu nahi dute. ETC-prentsa

Hain zuzen, Kodearen aldaketak aprobetxatuz, figura juridiko berri horiek sartu dira Kodean, esaterako **eskubide-abusuaren** doktrina. ETC-zientzia, zuzenbidea

Epaile aurreko adiskidetzean alderdiak adostasun batera heltzen badira, epaileak adostutakoa haietako batentzat kalte larria, lege-iruzurra edo **eskubide-abusua** dela uste badu, ez du akordioa onetsiko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kasu horretan, doloak hau esan nahi du: **eskubide abusua** edo kaltea sortzeko nahia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Epaitegi eta auzitegiek atzera botako dituzte, funtsaturik, ageriko **eskubide-abusuz** formulatzen diren edo lege- edo prozesu-iruzurra dakarten eskaera, intzidente eta salbuespenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *sexu abusu*

Gizonezko bat atxilotu dute Gasteizen **sexu abusuak** egiteagatik. Berria - Euskal Herria

Sexu abusuak gerta daitezkeela azaldu eta prebentzio neurriak erakutsi behar zaizkie Berria - Euskal Herria

Adin horretakoak dira ustez aitaren **sexu abusuak** jasan dituzten neskatoak. Berria - Euskal Herria

Erresuma Batuko 56 urteko gizon bat atxilotu eta auzipetu dute, Bombayko hegoaldeko (India) umezurztegi bateko haurrei **sexu abusuak** egiteagatik Berria - Gaiak

NBEko soldaduek **sexu abusuak** egin dituztela salatu dute. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **sexu abusuak** (12); **sexu abusuak egiteagatik** (5)

---

abuztu *(ETCn **35.921** agerraldi; orobat **aboztu** g.er. eta **abustu** g.er.)* **1** *iz* urtearen zortzigarren hila, hogeita hamaika egun dituena. ik **agorril**.

Abuztu hura tristea izan zen Joakin eta Kosmerentzat, baina baita Jose Mariarentzat ere. Iban Zaldua

Abuztu honetan, Bidearen hirugarren zatitxoa atzo hasia dudanez, gorputza martxari arrunt egina zait, orain. Piarres Aintziart

Han Hendaiako apartamentuan, hondartza giroko **abuztu** hartan. Joseba Sarrionandia

Abuztu oro bezala, Donostiara etorria zen udako egonalditxoa egitera. Koldo Izagirre

AEK-k uda honetarako prestatu duen eskaintza aurkeztu du eta, beti bezala, euskara ikasi edo hobetu nahi duten guztientzat hainbat aukera eskainiko ditu uztail, **abuztu** eta irailean. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aspaldiko partez **abuztu** kiskali horretan, firfira fresko batek ferekatu zidan bisaia. Aingeru Epaltza

Hotz baita eguna eta hotz ohea jada aspaldidanik, jada ia hasieratik, jada ia betitik, hotz zure alua bezala **abuztu** sargorian Landetako karabana izarrez inguratuan, nerabezaroko lo zaku lizunetan, arrotza begirada. Eider Rodriguez

Uzta garaian, Araba, Nafarroa edota Gaztelako **abuztu** betearen eguzki galdatan. Pako Aristi

Oporrak, luzeak zein laburrak, Europako biblioteka handienetan xahutzeko ohitura hartu zuen; **abuztu** oso bat Washington DCko *Library of the Congress*-en igaro zuen.

Iban Zaldua

Abuztu madarikatu horretako igande madarikatu horretan. Aingeru Epaltza

Hargatik bidaltzen dizkiot hemendik zorionak zeruraino (nahiz badakidan zeruak ez duela zorion beharrik), gaurko egunez, oso aspaldiko **abuztu** batek hogei egun zituela, mundura jaio zenari; munduaren eta mundutarren ergelak betiko erremindurik utzi zuten gizonari. Iñaki Segurola

Abuztu bereziki argi eta distiratsu batean (--...) zoriontsu nintzela jakin baino urte batzuk lehenago. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Abuztu aldera izango zen noski, baina susmo hutsa baino ez da hori. Joxerra Garzia

Aurreikusia bezala, 1874ko **abuztu** hasieran ni Tolosara iritsi, eta Rondilla 8ko bulego-lantegira joan nintzen. Txillardegi

Bazekien amak, denak ongi iraganez, **abuztu** hastapen-hastapenean sortuko zela. Daniel Landart

Junek odol-jario handi bat izan zuen burmuinean, etxeko baratzean lanean ari zela **abuztu** erdiko bero itogarriko arratsalde batean, eta hurrengo egunean hil zen egunak berriro argitu baino lehen. Oskar Arana

Abuztu erditik aurrera egiten dute hobera, baina aurten kostatzen ari zaie. Berria - Kirola

Hura kargutik kentzeko erreferenduma antolatu dute **abuztu** erdialderako. Berria - Mundua

Abuztu erditsuan, eta aurreikusi bezala, bisitaldi labur bat egin nuen Oñati aldera lau egunez. Txillardegi

Orduan gertatu zen uholdea, **abuztu** hondarrean. Xabier Mendiguren Elizegi

Abuztu amaieran eta iraileko lehen hamabostaldian guztiek bat egiten dute Euskal Herriko errepideetan. Berria - Harian

Ez zen, **abuztu** bukaerako basoa, leku txarra aitormenerako; isil zegoen, ilun zegoen, biguna zen oinek zapaltzen duten lurra. Bernardo Atxaga

Bi monzoi daude: lehenengoan haizeek mendebaldetik ekialdera jotzen dute, eta **abuztu**-irailetan hasten da; bigarrenean haizeek ekialdetik mendebaldera jotzen dute, eta urtarrilean hasten da. Iñaki Iñurrieta

Abuztu-irail partean grabatu behar zuen Imanolek disko berria, baina ezin izan zuen burutu bere nahia. Berria - Kultura

4 ***Ama Birjina Abuztuko***

-1912an, **Ama Birjina Abuztuko** egunez, galerna itzelezkoa Kantauri itsasoan: 100dik gora hildako, gehienak Bermeokoak; itsasontzi asko hondoratu zituen. Pello Zabala

Ama Birjina Abuztukoaren anparoan, hortxe kokatuta dator San Roke, eta, normalean, egun pare bat aurretik festagiro aparta lortu ohi dute halako herriotan. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abuztu amaieran (3); **abuztu bukaerako** (4); **abuztu bukaeran** (4); **abuztu hartan** (3); **abuztu hasieran** (8); **abuztu hondarrean** (3); **abuztu honetan** (5); **abuztu hunen** (3); **abuztu oro** (3); **abuztua arte** (6); **abuztua baino** (4); **abuztua bitarte** (3); **abuztua bitartean** (4); **abuztua bukatu** (3); **abuztua eta** (7); **abuztua izan** (6); **abuztua zen** (3); **abuztuan amaituko** (3); **abuztuan atxilotu** (5); **abuztuan atxilotu zuten** (4); **abuztuan beste** (4); **abuztuan egin** (4); **abuztuan egindako** (3); **abuztuan ere** (3); **abuztuan ernest** (3); **abuztuan eta** (11); **abuztuan eta irailean** (4); **abuztuan gertatu** (3); **abuztuan goteborgen** (4); **abuztuan goteborgen suedia** (4); **abuztuan hasi** (6); **abuztuan hil** (6); **abuztuan izan** (5); **abuztuan izan zen** (3); **abuztuan izaten** (3); **abuztuan jarri** (3); **abuztuan zehar** (3); **abuztuaren amaieran** (8); **abuztuaren azken** (6); **abuztuaren bigarren** (3); **abuztuaren bigarrena** (3); **abuztuaren bukaeran** (3); **abuztuaren erdi** (3); **abuztuaren erdi aldera** (3); **abuztuaren erdialdean** (7); **abuztuaren erdialdera** (3); **abuztuaren erditik** (3); **abuztuaren erditik aurrera** (3); **abuztuaren hamabosteko** (3); **abuztuaren hamaikan** (3); **abuztuaren hasieran** (11); **abuztuaren lehen** (13); **abuztuaren lehen egunetan** (3); **abuztuaren lehenean** (4); **abuztuaren lehenengo** (3); **abuztuaz geroztik** (9); **arrietaren abuztuaren** (3); **aurka abuztuak** (4); **aurtengo abuztuan** (5); **baina abuztua** (3); **baina abuztuaren** (7); **batez ere abuztuan** (5); **da abuztuan** (8); **da abuztuaren** (13); **da eta abuztuaren** (4); **datorren abuztuaren** (6); **den abuztuan** (17); **den abuztuaren** (19); **den urteko abuztuan** (3); **dira abuztu** (3); **dira abuztuan** (6); **dira abuztuaren** (11); **ditu abuztuan** (5); **dituzte abuztuaren** (3); **du abuztuan** (4); **du abuztuaren** (8); **dute abuztuan** (4); **dute abuztuaren** (3); **egin zuen abuztuan** (3); **epaiketa abuztuaren** (3); **ere abuztuan** (5); **erreferenduma abuztuaren** (3); **eta abuztu** (6); **eta abuztua** (7); **eta abuztuan** (34); **eta abuztuaren** (43); **etak abuztuan** (3); **finala abuztuaren** (3); **hartako abuztuaren** (3); **hasi eta abuztuaren** (3); **heldu den abuztuan** (3); **heldu den abuztuaren** (9); **helduden abuztuaren** (4); **hori abuztuaren** (4); **iazko abuztuan** (33); **iazko abuztuaren** (6); **iragan abuztuan** (10); **iragan abuztuaren** (20); **iragan urteko abuztuan** (3); **izan da abuztuan** (3); **izan dira abuztuan** (3); **izango da abuztuaren** (3); **joan den abuztuan** (13); **joan den abuztuaren** (6); **joan zen abuztuan** (9); **joan zen abuztuaren** (3); **kanporaketa abuztuaren** (3); **ko abuztuaren** (52); **puntuagarria abuztuak** (5); **tropak abuztuaren** (3); **urte hartako abuztuaren** (3); **urteko abuztuan** (18); **urteko abuztuaren** (15); **uztail abuztu** (3); **uztaila eta abuztua** (4); **uztailean eta abuztuan** (13); **zen abuztuan** (10); **zen abuztuaren** (11); **zituen abuztuaren** (3); **zuen abuztuan** (11); **zuen abuztuaren** (3); **zuten abuztuan** (4); **zuten abuztuaren** (6)

abuztuko ama (3); **abuztuko arratsalde** (6); **abuztuko astearte** (11); **abuztuko astearte horretan** (5); **abuztuko asteazken** (17); **abuztuko asteazken goiz** (3); **abuztuko asteazken horretako** (3); **abuztuko asteazken horretan** (9); **abuztuko astelehen** (8); **abuztuko astelehen horretan** (4); **abuztuko azken** (7); **abuztuko azken egunak** (3); **abuztuko bigarren** (3); **abuztuko egun** (7); **abuztuko egunak** (3); **abuztuko eguzki** (3); **abuztuko eta** (3); **abuztuko goiz** (6); **abuztuko goiz hartan** (3); **abuztuko igande** (5); **abuztuko larunbat** (10); **abuztuko larunbat horretan** (4); **abuztuko lehen** (9); **abuztuko lehenengo** (3); **abuztuko ortzegun** (10); **abuztuko ortzegun horretan** (5); **abuztuko ortziral** (15); **abuztuko ortziral goiz** (3); **abuztuko ortziral horretako** (3); **abuztuko ortziral horretan** (7); **abuztura arte** (6); **abuztura bitartean** (5); **abuztutik aurrera** (6); **baina abuztuko** (3); **eta abuztuko** (12); **iazko abuztuko** (4); **iazko abuztutik** (4); **nintzen abuztuko** (3); **urtarriletik abuztura** (10); **urtarriletik abuztura bitartean** (3)

---

abzesu *(corpusean ez dago; ETCn **91** agerraldi) iz* gorputzeko ehun batean gertatzen den zorne metaketa.

Egin genuen salto kalera eta mugimendu horrekin zornea gordetzen zuen **abzesua** lehertu genuen. ETC-literatura, saiakera

Abzesu bat izan zuen, gogoratzen? ETC-literatura, saiakera

Rosek Laskar doktorearengana eraman zuen txikia, honek **abzesua** zulatu zion, umetxoa zaindu egin zuen hainbat egun, eta kintal eta erdi pisatzen zuten inguruko basozainentzako gordeta zeukan botika dosiak eman zizkion. ETC-literatura, saiakera

Umetatik zaindu behar izan zuen belarri-infekzio batek okerrera egin zuen, hantura garunean barrena zabaldu zitzaion, eta **abzesu** bat sortzen hasi zen. ETC-literatura, saiakera

Amak ezin zidan eradoski, bularrean **abzesu** bat zuelako eta nik Guigoz esne industriala arbuiatzen nuen irmoki. ETC-literatura, saiakera

Abzesuak puztu dira, perla zuri beroen antzera. ETC-literatura, saiakera

Germenak animalia mikroskopiko moduko batzuk dira, haragi bizian ugaritu eta haragia bera hiltzen saiatzen direnak, eta orain **abzesua** agertu da. ETC-literatura, saiakera

Dena ondo joango da, seguru nago; baina, altxatzen bazara, hamaika arrisku izango dituzu: **abzesu** bat birikan, bihotzak hutsegitea... ETC-literatura, saiakera

Ipurmasailaren aldean agertzen diren patologia ohikoenak trokanterreko burtsitisa, tumorea eta **abzesuak** dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gutxiegitasun neurologikoak agertzen direnean, **abzesu** edo hematoma epidurala dira baztertu beharreko lehenengo konplikazioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina hasieran apenas kezkarik eragiten duten grano horiek bere horretan irraunez gero, horien gainean **abzesu** handitu eta gaiztotuak sortuko dira, bertan zornea pilatuz. ETC-prentsa

Askoz ere arraroagoak diren beste kasu batzuetan, buxadura odol-koagulu batek edo zorne-bilduma batek sor dezake, edo gernubidea **abzesu** nahiz tumore batek estutzen duelako agertuko da traba edo oztopoa. ETC-prentsa

Birika-**abzesuan**, nekrosi baten ondorioz, birikaren zati batean zornea pilatzen da. ETC-entziklopedia

Gibelean, esaterako, **abzesuak** sortzen dituzte, organoa kaltetuz. ETC-entziklopedia

Oso ugaria, egunean bi litrotaraino, birikako **abzesuren** bat fistula baten bidez bronkiora isurtzen denean (bomika deitzen zaio). ETC-entziklopedia

---

abzisa *(ETCn **214** agerraldi)* **1** *iz* puntu baten egongunea mugatzeko balio duten bi koordenatuetatik horizontala.

Dena dela, ezin gaitezke nora ezean gelditu, koordenatu batzuk behar ditugu, nondik nora gabiltzan jakiteko, zein magnitudetan gauden, x eta y, **abzisak** eta ordenatuak, longitudea eta latitudea, non-noiz, lekua eta denbora, aldea eta aldia. ETC-literatura, saiakera

(39) adibidean, berriz, arlo-testuingurua da azpimarratua, eta argibide horrek zehaztu du zer arlotan erabiltzen den **abzisa** izena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Abzisak egoera kuantiko baxuenari dagozkion zenbaki kuantikoak adierazten ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi dimentsiotako koordenatu sistema kartesiarretan, lehen koordenatua (literatura matematikoan **abzisa** deitua) ardatz horizontalean neurtzen da eta bigarren koordenatua (ordenatua) aldiz, ardatz bertikalean. ETC-entziklopedia

2 *abzisa ardatz*

"x'x, **abzisa-ardatza**", esan zuen ahapeka. Jon Muñoz

---

accesit *(ETCn 108 agerraldi; orobat **akzesit**, ETCn 195 agerraldi; orobat **accessit** g.er.) iz* lehiaketa batean ematen den ordainsaria, sariak baino maila apalagokoa.

Beka ematearekin batera, Korrika-AEK-k izendatzen duen epaimahaiak **accesitak** emateko aukera izango du, iaz Antzerkiola Imaginarioaren Ezekiel-ekin gertatu zen bezala. Berria - Kultura

---

accessit *iz* saria baino apalagoa den ordainsaria.

Korrika-AEK bekak diru laguntza bakarra ematen badu ere, epaimahaiak **accessit** bat eman dio Ezequiel Ianari. Berria - Kultura

Korrika-AEK beka bakarra ematen badute ere, epaimahaiak **accessit** bat eman dio Sagarroiren eta Antzerkiola Imaginarioaren Ezequiel Ianari. Berria - Kultura

---

accipiens *(corpusean ez dago; ETCn 53 agerraldi) iz* ordainketa baten hartzailea.

Tradensaren eta **accipiensaren** adostasuna beharrezkoa da, zalantzarik gabe, eskualdaketa hori kontsumatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ematekontratu horren sinatzaileak (tradens) hartzaileari (**accipiens**) dokumentua ematen dio, emate horretan jasotzen baita sinatzaileak betebeharra hartzeko duen borondatea (ZK 1809. artikulua). ETC-zientzia, zuzenbidea

Ordainketa egiten duena -solvens deritzona- eta ordainketa jasotzen duena - **accipiens** deritzona- bereizi behar dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eskurapen mota hau izan daiteke titulu unibertsalez (ondare osoa pasatzen da, aktiboa eta pasiboa, eta gauza multzo horretako zati gisa pasatzen da) edo titulu partikularrez (ondasun bakar bat tradens delakoaren ondaretik atera eta **accipiens** delakoarena pasatzen da). ETC-zientzia, zuzenbidea

Ordainketaren subjektuak: egiten duenak (solvens) eta jasotzen duenak (**accipiens**). ETC-zientzia, zuzenbidea

Ordaintzeko eragiketan parte hartzen duten subjektuak bi dira: solvens delakoa eta **accipiens** delakoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ordainagiriak, publikoak izan daitezkeen idatzizko dokumentuak dira, nahiz eta gehienetan izaera pribatua eduki, zeinetan betebehar baten hartzekodunak edo **accipiens** batek espresuki aitortzen duen dirua edo beste zerbait jaso duela "solvens" edo zordunaren aldetik. ETC-entziklopedia

---

ace *iz* tenisean, sakez egindako tantoa.

Marat Safinek 33 tanto egin zizkion Andre Agassiri sakez (**ace**). Berria - Kirola

Gillermo Cañas argentinarrari irabazi zion azken jardunaldian (6-1, 6-3 eta 6-3), eta sakearekin egin zuen, beste behin, txikizioa (21 **ace**). Berria - Kirola

30 **ace** lortu zituen johanssonek eta 34, berriz, Roddickek, baina suediarrak irabazi zuen partida (6-4, 6-4, 3-6, 2-6 eta 6-4). Berria - Kirola

Aurten bere lehen torneoa irabazi du, Menphisen, eta New Yorken ere joko aparta erakusten ari da; bera da **ace** gehien lortu dituena. Berria - Kirola

---

acholi *iz* Afrikako etnia, batez ere Ugandan edo Hego Sudanen bizi dena.

Iparraldean bizi den **acholi** etnia baztertzea leporatzen die agintariei eta haien alde borrokatzen dutela diote. Berria - Mundua

---

ad latinezko preposizioa, zenbait esamolderen parte dena.

1 *ad antiquitatem (corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Argumento **ad antiquitatem** (euskaraz "Usadioari erregutu") antzinatik zeozer egin edo sinistu izan baldin bada, orduan ongi dagoela edo egia delako baieztapenean oinarritzen den falazia bat da. ETC-entziklopedia

2 *ad augusta per angusta (corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Ad augusta per angusta latinezko esamoldea da eta, hitzez hitz, "leku gorenetara leku estuetatik" esan nahi du. "Per angusta ad augusta" ordena ere har lezake. ETC-entziklopedia

3 *ad baculum (corpusean ez dago; ETCn 6 agerraldi)*

Nik daukat ezen duten argumenturik inportanteena, oso usua eurek aldarrikatzen duten kulturan, argumentua **ad baculum** dela, nonbait zaplastako bat emanda erresolbitzen duenaren argumentu falaziazkoa. ETC-prentsa

Biktimismoa argumentu erretorikoa da, ad misericordiam, beste erasotzailetzat eta zitaltzat deskalifikatzeko, eta, gainera, **ad baculum**. ETC-prentsa

Argumento **ad baculum** edota argumentum **ad baculum** (latinez literalki "makilari erregutzen dion argudioa") argudio bat indarrean, mehatxuan edo norberaren karguan oinarrituz balioztatzen duen falazia bat da. Laburbilduz: "Indarrak zuzenbidea egiten du". ETC-entziklopedia

4 *ad calendas graecas (corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Baldin eta borondate horren asmoa bada **ad calendas graecas** atzeratzea garai zurrunbilotsu hau, berariaz esan beharko da, eta arrazoi politikoen bidez defendatu. ETC-prentsa

Ezagutzen dugu zentralismoaren timming betikoa: **ad calendas graecas** luzatzea eta luzatzea du helburu; eta data zeinahi delarik ere irits dadinean, plebiszitua debekatuko dute, onez ez bada, a derrior. ETC-prentsa

Arau horien xedeek ez dute gerorapena mugagaberaino, Augustok esan ohi zuen bezala, **ad calendas graecas**, luzatzea baimentzen, hau askatasuna ez itzultzea bailitzateke, arauaren betearazpenean atzerapen bat -askatasunaren itzulpena korrika eta presaka eta, beraz, arauaren asmoen aurka gerta ez dadin- egitea baizik. ETC-literatura, saiakera

5 *ad consequentiam (corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Argumento **ad consequentiam** edota argumentum **ad consequentiam** (latinez "ondorioetan argudiatua") argudio edo baieztapen bati erantzuteko dakartzan ustezko ondorio negatibo edo positiboak aipatzean datzan falazia logiko bat da. ETC-entziklopedia

6 *ad hoc*

Bertan, Alderdien Legea "ezker abertzaleak hauteskundeetan parte hartu dezala galarazteko **ad hoc** egindako legea» dela diote, eta bertan behera utzi beharko litzatekeela. Berria - Euskal Herria

Zaila da, baina, sailkapenerako irizpide formal bat aurkitzea, arbitrarioa eta **ad hoc** ez dena. Itziar Laka

Unamuno-ren testuetan, tirandura asko ez ezik, kontraesanak ere ugari daude, haren arrazoiketak **ad hoc** izan ohi dira-eta (Ortega ez da oso diferentea puntu honetan). Joxe Azurmendi

Bertso-saio bat horixe baita bereziki, lehenago **ad-hoc** ekoiztutako ezer ere ez erreproduzitzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Dudarik ez, hainbat egunetako bizar barbanak eta **ad hoc** jantzi nuen aspaldiko alkandora koadrodunak lagundu zuten, eta "Nuklearrik Ez" txapa erraldoi faltsifikaezinak. Iban Zaldua

Esan beharra dago programaren aukeraketan oso fin ibili zirela, **ad hoc** diseinatu baitzuten. Berria - Kultura

"Proposizio partikular bakoitzari prozedura erkidea aplikatuko zaionez gero, eta ez **ad hoc** prozedura bat, zera... alderdikeriagatik susmagarria, espazio demokratiko gisa agertzen da, hortaz, logika, baieztapen guztiei lege berberak betearaziko zaizkiela ezartzen baitu. Jon Muñoz

7 *ad hominem* *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi)*

"Argumento **ad hominem** " izenarekin ezagutzen den falazia erabiltzen duenak ez ditu aurkezten arrazoi egokiak; horren ordez, baieztapen bat aldezten duen pertsona gaitzesten du, edo pertsona hori bere ezaugarri edo ideiengatik erasotzen du, eta baieztapenaren sinesgarritasuna ezeztatzen saiatzen da. ETC-entziklopedia

Bertan, **ad hominem** , Juan Jose Ibarretxe jartzea soilik falta zitzaiolako, adierazten da erreferendum batera deitzea legez kanpokoa dela eta espetxe zigorra izan dezakeela. ETC-prentsa

'Ad hominem' argudioei stop. ETC-prentsa

" **Ad hominem** " argudiatzea da beste amarruetariko bat. ETC-prentsa

Mugimendu horren jatortasunaz eta zintzotasunaz zalantzak izatea ulergarria bada ere, argigarria da **ad hominem** oldartu izana, eta horrek argi erakusten du urduri jartzen gaituela mezuak, eta, horri izkin egiteko edo, mezulariaren jirabiran jartzen dugu atentzioa. ETC-prentsa

Autoritate-argudioaren aurka, sarritan erabili da **ad hominem** kontraerasoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gero ikusi dut fakultateetan-eta ikasten dela, **ad hominem** kritika eredu bezala. ETC-literatura, saiakera

Beste mota bateko kritikak, ordea - **ad hominem** eta ad mulierem egiten diren horiek-, ez irakurleari ez idazleari ez diote ezer aportatzen. ETC-literatura, saiakera

Teoria gai da masez jabetzeko **ad hominem** gizakiari frogatzen duen bezain laster, baina, eta **ad hominem** frogatzen du, erradikal bihurtzen den bezain laster. ETC-literatura, saiakera

Eskaera bakarra egingo nuke, egiterik baneuka: edozein dela ere egiten den kritika, ez dadila izan ' **ad hominem** ", pertsona kritikatuz beraren ideiei erantzuten ahalegindu ordez. ETC-literatura, saiakera

Ad hominem jardutearen betiko arriskua, badakik, denok zakiagu. ETC-literatura, saiakera

Alfred Adler matematikariak bozkarioz nabarmendu zituen ziurgabetasun eskerga horiek, Atlantic hilabetekariarentzat biltzarraren berri ematen zuen artikulu **ad hominem** sarkastiko batean.15 ETC-zientzia, zuzenbidea

Zeren, ttikitan, argudio guztiak **ad hominem** izaten baitira, eta inbidia jotzen baita jokaera gehienen oinarritzat. ETC-literatura, saiakera

Egungo kritikariek, Ruskinen ikuspegia eta sexu harremanetarako gabeziak elkartzerakoan egin dituzten **ad hominem** eraso esplizituetan erori gabe ere, zehar-esanak argiak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 *ad ignorantiam* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Argumentu iruzurti honi " **ad ignorantiam** " falazia deritzo, eta batxilergoko ikasleek erraz atzematen duten kontzeptua da, erraza baita agerian uztea, edozer baiezta daitekeela, edozeren izatea onartu, aurkakoa ezin ezezta daitekeela argudiatuz. ETC-prentsa

Hala ere, kasu batzuetan, **ad ignorantiam** argudioa justifikaturik dago, justifikaturik dago horrela jardutea. ETC-zientzia, zuzenbidea

"Argumentum **ad ignorantiam** " deritzon falaziak onartzen du ezen zerbaiten kontrako ebidentziak ez ezagutzea aldeko ebidentzia bat dela. ETC-entziklopedia

9 *ad impossibilia nemo tenetur* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Emateko, egiteko edo ez-egiteko prestazioaren ezintasunak, betebehar-harremanaren iraungitzea sorrarazteko, berehalakoa izan behar du (**Ad impossibilia nemo tenetur**). ETC-zientzia, zuzenbidea

Ad impossibilia nemo tenetur latinezko esapide juridikoa da eta, hitzez hitz, "inor ez dago behartuta ezinezkoa egitera" esan nahi du. ETC-entziklopedia

10 *ad libitum*

Baritono ahotseko gizonak, bere longainaren ertza jasorik, airean keinu zeremoniatsua egin zuen Mathilderi pasoa emanez, eta emakumeak **ad libitum** jostari bati ekin zion glissando eginez teklekin, kantariak publikoari agindutako historia balitz bezala. Anjel Lertxundi

Beste horrenbeste pentsatzen dute hamarrekoek bederatzikoez, eta horrela jarrai liteke, **ad libitum** , txikienetara iritsi arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Dudarik gabe,... bezalako multzo batean, inplosio eta esplosioaz gain, atsedenaldi bat ere atzematen da, non hersketa **ad libitum** luzatzen baita; eta irekidura handiagoko fonema bat balin bada,... multzoan bezala, hotsaren beraren emisioa da organoak geldi daudenean dirauena. Isabel Arrigain

"Izan dadila ezkerra maisua; jo dezala eskuinak **ad libitum** ". Alberto Barandiaran

11 *ad misericordiam* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Biktimismoa argumentu erretorikoa da, **ad misericordiam** , beste erasotzailetzat eta zitaltzat deskalifikatzeko, eta, gainera, ad baculum. ETC-prentsa

Ez dago horien alde **ad misericordiam** deirik egin beharrik. ETC-literatura, saiakera

12 *ad multos annos* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Eta nola ez, Musika Hamabostaldiaren zuzendari den Jose Antonio Etxenikeri (aurten 25 urte egin baititu jaialdiaren arduradun bezala) zorionak behin eta berriz, eta latinoek esaten zuten bezala, **ad multos annos** . ETC-prentsa

13 *ad nauseam*

Beraz ulertzekoa da mikrouhinen behaketak unibertsoaren hasiera ulertzeko giltza direla, eta beren inguruko artikuluen sagak **ad nauseam** jarraituko duela aurreikustea ez da zaila. Berria - Gaiak

14 *ad populum* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

"Argumento **ad populum** " edo "argumentum ex populo" deritzo jende askok iritzi batekin bat etortzearen ondorioz sortzen den falaziari. ETC-entziklopedia

Herrikoitasun handikoak suertatzen dira **ad populum** apelazioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ad populum argudioa, eskuarki demagogia deitua: entzuleen edo irakurleen oniritzi lortzean datza jendearen oinarrizko sentimenduei errekurrituz, iritzi edota ondorio ustez biribil baten inguruan, iritzi edo ondorio horrek benetako euskarri logikorik ez duen arren. ETC-prentsa

15 *ad verecundiam* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Ad verecundiam argudioa: ustezko autoritate edo aditu baten esanetan oinarritzen den argudioa: gizarteko pertsonaia ezagun edo prestigiodun batek? ETC-prentsa

Argumentum **ad verecundiam** delako hori lagungarria izan ohi da amarekin. ETC-literatura, saiakera

Argumento **ad verecundiam** , agintearen argudioa edo magister dixit, falazia logiko bat da. Zerbait egiazkoa dela defendatzeko argudioan gai horretan aditua edo jakituna den norbait aipatzean datza. ETC-entziklopedia

---

adabaki 1 *iz* saretua edo zulatua dagoenari josten zaion oihal edo ehunezko zatia.

Ez zuen nahi anaiek inolako arrazoirengatik bi tunika baino gehiago edukitzerik, nahiz eta uzten zuen haiei **adabakiak** jartzen. Askoren artean

Adabakiak zituen jakan, eta zuloak botetan. Jose Morales

Adabakiak egiteko bi burko-azalekin egin ninan blusa. Anton Garikano

Ukondo bat erakutsi zion, larruzko **adabaki** josi berriarekin. Joseba Sarrionandia

Bazter batean ohe handi bat **adabakiz** egindako estalkiarekin. Iñaki Mendiguren

Pobre baten antzera doa jantzita, erabat puskatutako eta **adabakiz** jositako jantziekin. Askoren artean

Aitak, bere jaka **adabakiz** josiaren mahuka astindu eta kalerako bidea hartu zuen. Harkaitz Cano

Birsortzeko eta birziklatzeko gaitasun handia du; ezerezetik sortzeko eta apurtu edo desbideratu dena berreraikitzeko: **"adabakiekin** soineko berria josteko" bere hitzetan. Ana Urkiza

Inork ez dio jantzi zaharrari jantzi berriari kendutako **adabakirik** josten. Elizen arteko biblia

Higatu samarra zen jaka hura, baina garbia, eta behar bezala zeuzkan ukondoak: batere **adabakirik** ez. Jose Morales

Doktorearen zortzi soingaineko aurkitu ziren, berri-berriak, naftalinaz barrubeteak, eta bere denboran amonak hari erabiltzen utzi zion bakarra, dena petatxu eta **adabaki** ,

lepo-paparrak gantzuz lustratuak zituela. Juan Garzia

Emakumeak **adabaki** -hari pixka bat enkargatu die eta azukre zerbait. Juan Garzia

Barregarria gertatzen da horrelako euskara, kolore guztietako **adabakiz** josítako pailazoen jantziak ere barregarri gertatzen diren bezala. Koldo Zuazo

Adabakiz josítako kanpadenda bildu, eta lekuak hustu ditugu. Javi Cillero

2 irud/hed

Berdin zen bulegora besoa uhal batez bildurik edo begian **adabaki** batekin agertzen bazinen, Henryk ez zizun hitzik esango. Oskar Arana

Dokumentua **adabakien** batuketa bat da: handik eta hemendik hartutako pusketekin egindako dokumentua. Berria - Harian

Guztiok jartzen diogu **adabakiren** bat gure nortasunari, guztiok dugu zerbait gezurrezkoa. Joxean Agirre

Zapaterok egin nahi dituen aldaketak **adabakiak** baino ez dira. Berria - Harian

Egun batean atzera begira hasten zara, ea merezi duen zenbat gauza dagoen zure bizitzan, ea gogoangarriak gerta litezkeen zenbat pertsona ezagutu duzun, ea lagunak benetakoak izan diren ala denbora betetzeko behar zenituen **adabakiak**. Pako Aristi

Koadernotxo bat zeukan eskuetan, eta bertan isiltasunaren **adabakiak** josten ari zen, eskulangile baten fineziaz. Karlos Linazasoro

Adabakiz josítako kanpadenda bildu, eta lekuak hustu ditugu. Javi Cillero

Aspaldiko Greziako eta latin-aro hurbileko burusi nabar direlakoez dihardu, eta Ben Jonson-ez, zeinak Senekaren **adabakiz** definitu baitzituen bere garaikideak. Juan Garzia

Orain gauak haize eta txikizioz beteak daude; zuhaitzak okertu eta makurtu, eta hostoak zalapartan hegatzen dira, belardiari **adabakiak** jarriz, eta erretenetan metatzen eta tuberiak trabatzen eta bide bustietan barreiatzen dira. Anton Garikano

Itxarote zerrenda murrizteko neurriak **adabakitzat** jo ditu oposizioak. Berria - Euskal Herria

3 *irud/hed (izenondoekin)*

Humboldtek garbi ikusten du, euskarari esker, bereziki, hizkuntza gizakiarentzat ez dela **adabaki** hutsa: hizkuntzari esker, gizakiak bere nortasuna garatzen du, bai maila pertsonalean eta bai sozialean. Berria - Kultura

EBko Kontxi Bilbaok, berriz, **"adabaki** demagogikoak" bilatzea egotzi zion Zabaletari. Berria - Ekonomia

Intrigatu egiten dute gortean eta kantzilerietan; **adabaki** berriak eransten dizkiete Garibairen kontrako susmoei; Garibairen gainbehera bilatzen dute. Anjel Lertxundi

Beti bakoitzak nahi duen huraxe esaten badu, aurkariaren arrazoia inoiz aintzat hartzen ez bada, elkarri nola edo hala josítako **adabaki** mordo baten itxura mordoiloa hartuko du bertso saioak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gutxiago edaten zuen, egoki gobernatzen zen gonbidaturik bagenuen eta Lajosen katamotz-begietatik gordetzen zen, izandako bizitza triste eta **adabakiz** betea ezkutatu nahian. Ander Irizar

Garraio sistema horren bidez, arraza eta gizarte integrazioa sustatu nahi ziren; finean, aukera berdintasuna (halaz ere, antza, **adabakizko** neurri horrek porrot egin du, gurasoek ez baitute oso gogoko auzo txiroetatik datorren migrazioa). Iñaki Heras

4 *irud/hed (hitz elkartuetan)*

Hausterren patchworkaren teoria, CATeko foileto hura **adabaki** bilduma zela, indarra hartuz zihoan. Iñaki Iñurrieta

Margaritak azaldu zigun gaztelaniaz bóveda celeste deritzana esamolde bitxia iruditu izan zitzaiola harik eta halako batean, atzean utzita Euskal Herriko zeru **adabaki** lauak, zeruak Gaztelan duen kurbaduraz ohartu zen arte. Bernardo Atxaga

Bizitza osoan entzungo ez nituzkeen diskoak, aspertuaren aspertuaz heriotzara eraman zaitzaketen liburukoteak, albumetan txukun-txukun gordetako egunkari **adabakiak**. Sonia Gonzalez

Egunkari horietako batetik hartutako prentsa-**adabaki** bat. Karlos Zabala

5 ***adabakia jarri***

Horrek esan nahi du planen bitartez langileak euskalduntzea **adabakia jartzea** dela. Berria - Euskal Herria

6 ***adabakiak ezarri*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Isaacen hitzetan, Miarritzek "**adabakiak ezarri** ditu" aste honetan gibelean. ETC-prentsa

Aurreko legealdian gobernatu zutenek erreforman **adabakiak ezartzea** planteatu zuten. ETC-prentsa

7 ***adabakiak jarri***

Ez dira ez **adabakiak jartzeko** ez ordezkaritza sindikalari xantaia egiteko garaiak. Berria - Ekonomia

Rina hau jostun moduko zerbait zen etxean: ona, baina soingainekoak barrenekoz kanpora jartzeko eta galtzei **adabakiak jartzeko** bakarrik, ez baitzuen soinekorik egiten. Fernando Rey

Sekula ez diote ekiten prozeduraren sakoneko aldaketari, **adabakiak jartzen** ari dira beti. Berria - Euskal Herria

Cecilia eta Faedistarreneko neskak ez ziren mojengana hain sarri joaten elizako gauzetarako bakarrik: uda aldian ere joan ohi ziren laguntzera, kolonia helioterapikoaren garaian, edo bordatzen, **adabakiak jartzen** eta bestelako emakume lanak ikastera ere joan ohi ziren haietara, edo, baita ere, txandaka, etxeko gazteenei Erruki Etxera laguntzeko ere bai. Josu Zabaleta

Iraganari **adabakiak jartzen** dizkiogula diozu... Ana Urkiza

Poesiak **adabakiak jarri** zizkion zaurietan. Berria - Kultura

Gainerakoan, ez zuen nahi anaiek inolako arrazoirengatik bi tunika baino gehiago edukitzerik, nahiz eta uzten zuen haiei **adabakiak jartzen**. Askoren artean

Orain gauak haize eta txikizioz beteak daude; zuhaitzak okertu eta makurtu, eta hostoak zalapartan hegatzen dira, belardiari **adabakiak jarriz**, eta erretenetan metatzen eta tuberiak trabatzen eta bide bustietan barreiatzen dira. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adabaki bat (7); **adabaki bat** (7); **adabaki batzuk** (5); **adabaki batzuk** (5); **adabaki batzuk josi** (3); **adabaki batzuk josi** (3); **adabaki hutsa** (3); **adabaki hutsa** (3); **adabakirik josten** (3); **adabakitzat jo** (3); **adabakiz josítako** (6); **eta adabaki** (3); **eta adabaki** (3); **eta adabakiz** (5)

---

adabakidun *izond* adabakiak dituena.

Txalupa eta bela **adabakiduna**. Anton Garikano

Paul D. aulki kulunkarian eseri eta aztertu du ohe-estalkia, inauterietako **adabakiduna**. Anton Garikano

---

adabakitsu *izond* adabaki asko dituena.

Arropa **adabakitsu** zarpailek estaltzen zuten gorputz hark ez baitzuen ederrean berdinik, ezta jarrera kortesiazkoan ere parerik. Anjel Lertxundi

---

adabakitu, adabaki(tu), adabakitzen **1** du *ad* adabakiekin konpondu.

Nola egin plegu bat lisaburdinaz edo nola kendu izurrak, nola **adabakitu** eta konpondu gure galtzerdiak, nola atera distira gure botoiei, eta plakei, eta botei. Mirentxu Larrañaga

Ceciliak ez zituen jaso begiak **adabakitzen** ari zen arropa zuritik azkeneko poz eztanda bakanetan ere. Josu Zabaleta

Azpiko galtzamotz zarpailduak ezin **adabakitzeko** bezain tarratatuak zituenean, amonaren kalikozko gona izaten zuen jarrita altzoan eta gerriaren jirabira osoan. Mirentxu Larrañaga

Gaixoak bisitatzen ditut, eskolak ematen ditut, arropa **adabakitzen** dut, lixiba egiten dut, negurako prestatzen naiz: azpiko berria jarri diot berokiari. Felipe Juaristi

Pepponek Gisellaren senarra hartu zuen gogoan: gixontxo argal eta errukalgarri bat, galtzak **adabakitu** eta jatekoa egin behar zuena bere emaztea kanpoan zebilen bitartean "masak mobilizatzen". Koldo Biguri

Alargunaren etxean miseria-giro nahiko tristea zegoen; ama-alabek jantzi saretu eta **adabakituak** zerabiltzaten. Josu Zabaleta

Hura zen bere laneko alkandora ere, dena **adabakitua**, nahiz eta lixibaz freskoa egon. Josu Zabaleta

Hura zen bere laneko alkandora ere, dena **adabakitua**, nahiz eta lixibaz freskoa egon. Josu Zabaleta

2 (era burutua izenondo gisa)

Alargunaren etxean miseria-giro nahiko tristea zegoen; ama-alabek jantzi saretu eta **adabakituak** zerabiltzaten. Josu Zabaleta

Zaude pixkatean, eta utziezu nere hitzei atrebentzia puskat hartzen eta zure bihotzondo **adabakitu** horretan aztarrika aritzen. Iñaki Segurola

---

adabatu, adaba(tu), adabatzen du *ad* adabakia ipini; konpondu, antolatu.

Pozik ziren tunika bakar batekin, inoiz barrutik eta kanpotik **adabatua**. Askoren artean

---

adabegi *(orobat **adarbegi** g.er.)* **1** *iz* enborrari adar bat biltzen zaion tokian sortzen den gune gogorra.

Adar jotzaileen artetik sugea bezala irristatu eta bere aurreko hankak enborrean zegoen **adabegi** batean ipini zituen. Iñaki Mendiguren

Peter, txikiena izanik, sahatsaren adar erasotzaileen azpira sartzen zen eta adarrak mugitu ezinik uzten zituen **adabegia** ukitzen zuen. Iñaki Mendiguren

Zuhaitza gerarazteko Lupinek erabili zuen adarra hartu, **adabegia** zapaldu eta bistatik desagertu zen. Iñaki Mendiguren

60 ontzako egurrean (4. proba), ordea, **adabegi** bihurria irten zitzaion, eta nafarrak ongi baliatu zuen aurrea hartzeko aukera. Berria - Kirola

2 irud/hed

Diagrama horretako **adabegi** bakoitza, beraz, tresnaren egoera bati dagokio. Itziar Laka

Beraz, *hit the ball* hurrenkerak badu jatorrizko **adabegi** bat AS izena duena eratorritako perpausean. Itziar Laka

Bukaerako kate baten osagai-egitura haren eratorpenak erabakitzen du, katearen mailak **adabegietaraino** jarraituz. Itziar Laka

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adabegia zapaldu** (3); **enborreko adabegia** (3); **jatorrizko adabegi** (4)

---

adabegitsu *izond* adabegi asko dituena.

Zuhaitz **adabegitsuak** zeuden harresiaren inguru osoan. Iñaki Mendiguren

Jaun bat agertu zen bidearen amaieran; haienganantz zetorren, kapelua buruan eta makila **adabegitsu** bat eskuan. Jose Morales

Eskularru-pare sendoa jantzi, makila **adabegitsu** handi bat hartu eta liburu izugarrien kaiolako aterantz abiatu zen. Iñaki Mendiguren

---

adaburu *(orobat **adar-buru** g.er.)* **1** *iz* zuhaitz baten adar-abarren multzoa.

Libanoko zedro baten antzeko zara: adar bikainak eta gerizpe ederreko hostaila ditu, eta enbor luzea, **adaburua** hodeietaraino iristen zaiona. Elizen arteko biblia

Ibilbideko zuhaitzen **adaburuak** haizeak astintzen zituen. Joxemari Urteaga

Bat-batean, ordea, Jainkoaren indarrak gora jaso zuen, zuhaitzaren tontorra ukitzeraino, eta konturatu zen **adaburua** oso erraz lurreraino makurtzea lortzen zuela. Askoren artean

Urki baten enbortzar zuriak -**adabururik** gabe, ekaitzek edo erauntsiek erauzi baitzioten- gaina hartzen zion baso tapituari, airean zut, biribil, marmolezko zutarri erregular eta distiratsu baten antzera. Jose Morales

Jendea zuhaitzetako **adaburuetan**, helikopteroen zain. Unai Elorriaga

Haltzen **adaburuak** ikaratu egin ziren, eta txori-samalda bat atera zen ihesi. Inazio Mujika Iraola

Lur beltzeko alor irauli berriak estepan han-hemenka barreiaturik, abesti urrun baten doinua, pinuen **adaburuak** laino artean, kanpai-hotsa urrunago, bele beltzak nonahi, zerumuga azkenik gabea. Jose Morales

Dorretxo karratu lerdenaren soslaia gailentzen zen zumarraren **adaburuaren** gainetik. Txillardegi

Intxaurrondoaren **adaburuan** behera erori naun, eta horrek zartakoa arindu zidan. Anton Garikano

Heinrich zen, patioko eukalipto baten **adaburura** igota. Fernando Rey

Pinuek, enborretik **adabururaino** sugarretan, argi ematen zioten oparo eszenari. Karlos Zabala

Distira bereko errainu irritsua zerien jauregi aurreko platanondo, zumar eta ezkien **adaburuei** ere. Anjel Lertxundi

Eguzkiaren argia kameliaren barnean murgiltzen zen, eta bazirudien arratseko argia igeri zebilela kameliaren **adaburuan**. Ibon Uribarri

Adibidez zuhaitz biribiletan gertatzen dena, hala nola izei, altzifre eta pinuetan: horiek denak lodiagoak izaten dira sustraien ondoko partean, baina gero, gora igotzen doazen neurrian, mehartzen joaten dira modu guztiz natural eta uniformean, **adaburura** iritsi arte. Santiago Iruretagoiena

Zedro garaiaren **adaburutik** hartuko dut neuk ere, kimu berri bat hartuko dut haren adar-puntatik, eta neuk landatuko dut mendi garai eta bikain batean. Elizen arteko biblia

Horregatik, anai Joan, bera zegoen **adar-burutik** irten eta, adar guztien azpira jaitsiz, zuhaitz-enborraren orpo ondoan ezkutatu zen, zer gertatuko ote zen pentsatuz. Askoren artean

2 (izenburu eta izenlagunekin)

Palmondoen **adaburu** lumatsuak. Iñaki Mendiguren

Zuhaitz tantaiaren **adaburu** hostotsuaren azpiko lurrean iltzatuta. Mirentxu Larrañaga

Leiho zabal batetik kaleko zumarren **adaburu** beltzak ageri ziren ilunabarreko urdin kobaltoarekin jolasean. Ramon Saizarbitoria

Alde batean, lorategiaren mugan bertan, lertxun garai batzuek, gainerako zuhaitz guztiei gaina harturik, bele-habia ikaragarri handiak gordetzen zituzten beren **adaburu** dardaratietan. Jose Morales

Bospasei urki txikik hosto txikiko **adaburu** bakanak agertzen zituzten hor-hemen. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan)

Zaro dagoen muinoaren erpinean, plazatxo estu eta luze baten erdian, intxaurrondo **adaburu**-zabal ikaragarri bat dago. Koro Navarro

Haizeak Maximilian plazako zuhaitz-**adaburuen** artean egiten zuen firfira baizik ez nuen entzuten. Alberto Ladron Arana

Nire adarrak astindu bat jo zuen, eta sasien goiburuak bizi-bizi hurbildu zitzaizkidan, zuhaitz **adaburu** berdeak bailiran. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zuhaitzen adaburuak** (3)

---

adaggio ik **adagio**[1].

---

adagietto *iz* adagioa baino pixka bat azkarragoa den tempoko musika lana edo zatia.

Harien **Adagietto** famatua oso polita gertatu zen (eztulak mugimendua izorratzeko zorian egon ziren). Berria - Kultura

---

adagio[1] *iz* tempo moteleko musika lana edo musika zatia.

Gero, sofan eseri ginen, musika entzutera: Amancio Pradaren disko bat, Rosalía de Castroren poemak kantatzen zituena; gero, **adagio** batzuk, lasai-lasai hitz egiteko, sofan erdi etzanda. Juan Kruz Igerabide

Albinoniren **adagioa**. Fernando Morillo

Trinkotasuna hasierako **adagio**-an eta garapenean ondo azpimarratuz instrumentuen koloreak; bigarren **adagioan** primeran bete zituzten dinamika desberdinen graduazioak. Berria - Kultura

Obraren lau atal handiak erdiko **adagioan** elkartzen dira. Berria - Kultura

Adagioari ekitera doazenean. Felipe Juaristi

Adagioa eten dute emakumeek. Felipe Juaristi

Hasieran egun argia eta txori kanta bezain alaia; baina poliki-poliki, doinuaren martxa areagotuz zihoan neurrian, sakonagoa egin zen, eta gero poliki-poliki ilunduz joan, itsasoa ere zenbat sakonago eta ilunago den bezala, eta azkenik negar, min, oihu bihurtu, **adagio** luze, aiene zabal. Felipe Juaristi

Kantata horretako **adagioa** entzutean, **adagio** barnerakoia inondik inora, Juvenalia etorri zitzaion burura. Felipe Juaristi

Bat-batean, **adagio** xalo bat jarraitu zitzaion *staccato*ari, efektu-kolpe kontrastezko batez. Anjel Lertxundi

---

adagio[2] *iz* esaera laburra, beti era berean esaten dena, eskuarki kontseilu moral bat edo irakaspen bat daukana. ik**zuhur 8**.

Pater semper incertus dio **adagioak**, *Stop making sense* eta horrelako mezuak nagusitzen ari dituk, eta ondo egongo liratekek **adagio** horiek, *cum mica salis* hartuz gero, apur bat erlatibizatuko balira, baina ez zirudik bide horretatik goazenik zoritxarrez. Ramon Saizarbitoria

---

adaje *(orobat **adarje**) iz* abere baten adarren multzoa.

'Arkanbeleak dira,' esan zuen Pinotxok. **'Adajea** oreinek bezala erabiltzen dute emea lortu nahian beste arren aurka...'. Joseba Sarrionandia

Jeneralaren amak, kondesak, debekatu egin zien ehiztariei jauregian sartzea, ezkutarazi egin zuen ehiza gogora ekartzen zuen guztia: armak, kartutxo-zorroak, antzinako geziak, hegaztien buru disekatuak, oreinen **adajeak**, den-dena. zaharrez hil eta malkarrean eroritako izei bat gelditua zen bloke hartan gainbeheran jinik, eta bere **adarje** idor eta izugarriaz estalia zeukan. Xabier Olarra

Han gelditu ziren kolore anitzeko aretoak, urratzen hasitako zeta frantsesez hornitutako beren hormekin; lurreko sua eta liburuak zeuden egongela eskerga; orein-**adajez**, basoilar disekatuz eta basahuntz-buruz dekoratutako eskailera. Xabier Olarra

---

adakera *(corpusean ez dago; ETCn **87** agerraldi) iz* zuhaitz edo animalia baten adar multzoa.

Aulki puskatu bat buruz behera armairu baten gainean, lanpara baten pantaila orein baten **adakeran** sostengatuta, giltza zaharren sorta bat iltze batetik zintzilik, leundu gabeko oholak hormaren kontra. ETC-literatura, saiakera

Adakera baxuko zuhaitz hostotsu batek salto egin zuen. ETC-literatura, saiakera

Etxolak lurrezko hormak zituen eta isatsezko eta txilarrezko **adakerazko** sabaia; ez zeukan aterik. ETC-literatura, saiakera

Mendi-lerroaren oinetan izei-ilarak, maldan izei taldeak, gailurrean izei bikoteak eta bakanak, artean han eta hemen **adakera** zuria zirudien urki bat. ETC-literatura, saiakera

Zuhaitz asko hostoak galtzen hasiak ziren jada, baina oihan gaineko **adakera** hain zen oraindik itxia, non egun-argia ere udazkeneko ilunabar bihurtzen baitzen haren azpian. ETC-literatura, saiakera

Parkea lurrun anestesiatuen baitan hondoratuta eta lokartuta zegoen, ur zorrotadek geyserrak ziruditen, bankuetako oholtxoek hodi fluoreszenteak eta zuhaitzen arteko **adakerak** kristalezko arkitektura osatzen zuen. ETC-literatura, saiakera

Hurrengo ikuspena arrainak zuhaitzaren **adakera** trinkoan habiaginan izan daiteke, ni kalatxoriei arrautzak ostera noan bitartean. ETC-literatura, saiakera

Zein **adakera** bikaina!, bota zuen harro. ETC-literatura, saiakera

Lekua ezezaguna bazitzaion ere berehala hartu zion **adakera**, eta lurrezko bidean barna abiatu zen. ETC-literatura, saiakera

Gazteenek baso naturaletako itxura erakusten dute, luzexkak eta ia **adakera** gabekoak. ETC-prentsa

Ez du **adakeraren** edertasuna aldarrikatzen; honek haren zehar baino ez da pasatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zuhaitz hau tamaina ertainekoa da, 20 metrorainokoa eta **adakera** zabalekoa. Adar bihurriak dituzte. ETC-entziklopedia

Adakera luzanga du, zertxobait irregularra, adar luze eta malguekin. ETC-entziklopedia

---

adaki *iz* abar moztua, eskuarki adaxkak eta hostoak kendu zaizkiona.

-Kontu luzea da, motikoa, eta tristea hagitz.- dio aitonak, suari **adaki** batzuk bota eta pipa ezpainetik ezkerreko eskura daramala. Patziku Perurena

---

adakitu, adakitu, adakitzen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* du *ad* adarrak soildu.

Han bertan, bide ertzean zeuden bi harritzarretan eseri ziren zein baino zein urduriago, Leandro zigarro bat erretzen eta Estitxu, berriz, adar batzuk **adakitzen**. ETC-literatura, saiakera

---

adamantino *iz* diamantearen distira, gogortasuna edo beste ezaugarriren bat duena.

Sinplegade **adamantino** horien artetik arrakastaz igarotzearen saria, ordu arte han itsastatzen ahalegindutako itsasontzi guztiak apurtu zituztelarik haien barailezur mugikorrek, argonauten kondairazko esperientzia izan liteke: ordu arte gizadiak inoiz itsastatu gabeko itsaso zabalera irtetea, alegia. Iñaki Mendiguren

---

adanismo *iz* bestek lehenago egin dutena kontuan artu gabe aritzeko joera.

Kate-begi moduan hartutako orain batez ari naiz, ez oraina alfa eta omegatzat jotzen duen itzalik gabeko **adanismo** batez. Anjel Lertxundi

Ageri diren dozena erdi kazetariak bikainak dira, zinez, baina non daude Argia edo Egunkariaren itzalean hazi diren kazetari profesionalak? **Adanismotik** edaten duen misterioa dirudi. Hasier Etxeberria

Nondik sortu zaigu euskaldunoi gure azken mende erdiko literaturan erakutsi dugun -nabarmendu nahi izan dugun- **adanismoaren** minbizia? Anjel Lertxundi

Kate luze baten kate-begia baita gaurko literatur jarduna, eta, **adanismoaren** tentaldia gainditurik, unibertso kolektiboak eraikitako tradizio zabala baitu bere inspirazio-iturri eta lan-eremu. Anjel Lertxundi

---

adaptatibo *(corpusean ez dago; ETCn **159** agerraldi)* **1** *izond* adapta daitekeena.

Bere erantzunak **adaptatiboak** bezain sortzaileak dira. ETC-literatura, saiakera

Darwin eta bere Eboluzioaren teoriak gizakia eta animaliak bereizten zituen hutsartea ezabatzea ekarriko du eta izaki bizion gaitasunak bere balio **adaptatiboen** ikuspegitik aztertzeko joera. ETC-literatura, saiakera

Beren ezaugarri behinenetakoa da beren portaera "**adaptatibotzat**" har daitekeela, beraien biziraupen-aukerak optimizatzearen zentzuan. ETC-literatura, saiakera

Erreakzio **adaptatibo** horrek fetua agortze-egoerara eraman dezake. ETC-zientzia, zuzenbidea

Joera guztien artean, bost sakondu ditugu: proiektuetan eta arazoetan oinarritutako ikaskuntza, gamifikazioa, flipped learning, u-learning eta ikaskuntza **adaptatiboa**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arrain hegalari bat uretatik ateratzen denean, berarentzat guztiz **adaptatiboa** da berriz uretan sartzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Orain arteko teleskopioak ez dira gai izan horrelako bereizmena lortzeko; baina, belaunaldi berrikoak (orbitan jarritakoak edo optika **adaptatiboz** hornitutakoak) gai izango dira izarren gainazaleko irudiak lortzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lan-ildo batek dio albo-ondorio hutsa direla, eta ez dutela balio **adaptatiborik**; hau da, ez dira hautetsiak izan mesedegarri direlako. ETC-prentsa

Kontuan izan behar da barau egiteak hiperfagia **adaptatiboa** sorrarazten duela. ETC-prentsa

Ezagutzaren funzioa **adaptatiboa** da, zentzu biologikoan. ETC-entziklopedia

2 ***erradiazio adaptatibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Permiarrean egon zen desagertze masiboaren ondoren **erradiazio adaptatibo** berri bati ekiteko aukerak izan zituzten hainbat bizitza forma. ETC-entziklopedia

---

adaptatu, adapta(tu), adaptatzen *(ETCn **63** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **egokitu**, **girotu** eta **moldatu** agertzen dira)* du *ad* egokitu.

Euskaldunen gerra gogoak, bada, ez dirudi buruetan modernizazioari **adaptatu** ezinak sorturiko gaitza. Joxe Azurmendi

Ez zela eskoletara ondo **adaptatu**, depresioak jota zegoela, Galiziara itzuli nahi zuela eta ea zainduko genuen guk gau hartan. Iban Zaldua

Adaptatzeko dirua: 2001ean sorturiko Adaptazio Funtsa prestatzen hasiko dira garatzeko bidean diren herrialdeei klima aldaketak eragindako kalteei aurre egiten laguntzeko. Berria - Gaiak

---

adaptazio **1** *iz* adaptatzea, egokitzea.

Adaptazio eta guzti, jakina, kutsu erreala izan zezan. Joan Mari Irigoien

Adaptazio arazoak: Gurasoetarik %23,2k arazoak izan dituzte umea hazten ari dela sortutako arazoei egoki erantzuteko. Berria - Euskal Herria

Hobeto jasan ditut tarteka-marteka botatako ateraldi arrazistak eta matxistak andaluziarren kontura sortutako egoera baino, badirudielako kanpokoen **adaptazio** zailtasunetan oinarritzen dela baskoen baskotasuna. Berria - Kultura

Adaptatzeko dirua: 2001ean sorturiko **Adaptazio** Funtsa prestatzen hasiko dira garatzeko bidean diren herrialdeei klima aldaketak eragindako kalteei aurre egiten laguntzeko. Berria - Gaiak

Iduritzen zait finala aurreratzen ari naizela, baina *A Eurocopa es nosa copa* esaldia geroz eta hurbilago dago errealitate bihurtzetik, nire **adaptazio** soil batean geratzetik baino. Berria - Kirola

2 ***film adaptazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Film adaptazioa edo gidoi moldatua literatura lan bat beste formato batera eramatea da. Horrek lengoaia literarioaren aldaketa dakar eta, askotan ere, argumentuaren beraren aldaketa. ETC-entziklopedia

---

adaptazionismo *iz* biologian, ezugarri gehienak haukaketa naturalak eragindakoak direla dioen teoria ebolutiboa.

Kritika batzuen arabera, egon badago eboluzioaren teorian **adaptazionismoa** (edo egokitzapenkeria: hitza Gould eta Lewontinen artikulu famatu batean agertu zen lehendabizi). Askoren artean

---

adar **1** *iz* zenbait animaliak kopeta aldean dituzten hezurrezko luzakin bakoitza.

Orduan, tronuaren erdian eta lau izaki bizidunen eta zaharren erdian, Bildots bat ikusi nuen; zutik zegoen eta lepo eginaren ezaugarriak zituen: zazpi **adar** eta zazpi begi zituen, hau da, Jainkoak lur osora bidaliak dituen zazpi espirituak. Elizen arteko biblia

Nazkagarria zen, eta zezenak baino **adar** luzeagoak zituen. Jose Morales

Zaldi itxurako animalia honek **adar** kiribildua zeukan sudurraren gainean eta **adar** horren propietateak ikusgarriak ziren jendearen ustez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Indian **adar** bakarreko zaldiak bizi omen dira eta baita **adar** bakarreko astoak ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ibai ondoan zutik ikusi nuen **adar** biko ahariagana hurbildu eta lasterka batean haren aurka joan zen bere indar guztiaz. Elizen arteko biblia

Bisonteari, "bi-**adarreko**" esaten diote Amerikako indiarrek. Jon Muñoz

Adar pusketa batekin harrotu nuen lurra Ronnieren hilobitxo atzean, eta lehenengo pospolo kaxa azaldu zen. Bernardo Atxaga

Erdirago, aldare-harrian etzanda, ereinotz **adar** polit bat ikusten zen, hosto lustretsu eta lore ugarikoa. Bernardo Atxaga

2 *hed*

Bekokiaren erdian **adar** bakarra duen zaldi itxurako animalia alegiazko baten istorioa duk. Anjel Lertxundi

Bada adarbakoitza izeneko animalia bat, garbia eta garbi zalea, **adar** bakarragatik guztiz preziatua, baina ehiztariek harrapatu ezin dutena. Anjel Lertxundi

3 adar hustu eta zulatua, musika tresna bezala erabiltzen dena.

Israeldar guztiak igo ziren Jaunaren itun-kutxarekin batera, poz-oihu artean, **adar**, turuta, txilin, harpa eta zitarak joz. Elizen arteko biblia

Jo zituzten apaizek **adarrak**. **Adar**-hotsa entzutean, herriak izugarrizko irrintzia egin zuen, eta harresiak behea jo zuen. Elizen arteko biblia

Gudu-garrasi eta **adar**-hots artean hilko dira moabdarrak Oihu eta **adar**-hots artean zeramaten Jaunaren kutxa Davidek eta israeldar guztiek. Elizen arteko biblia

Adar-hots luzea entzun bezain laster, herri osoak irrintzi handia egingo du eta hiriko harresia behera etorriko da. Elizen arteko biblia

Biola-joleak egon ziren, baita txirula eta zilarrezko **adar**-joleak ere. Agustin Otsoa

Ibaitik bapore-**adar** baten auhen luzea zetorren, haize beroaren altzoan garraiaturik. Lopez de Arana

4 adar hustua, edalontzi gisa erabiltzen dena.

Toki guztietan **adar** bete garagardo altxatu beharrean zegoen, bere erregetzari eta irlandar guztien batasunari topa egiteko. erregetza luze baten alde topa egin zutenean, norbaitek eskuan beste **adar** bat ipini zion eta berak trago bakar batez hustu zuen, ia konturatu gabe. Joanes Urkixo

5 adarkia, animalien adarren gaia.

Txabola batzuk eraikitzen dira egur-ziriez, **adarrezko** estalkiekin, oherako nahikoa da besokada bat lasto. Jon Alonso

Brontzezko plakak edo **adarrezko** soinu-taulak dituzten tresnetan hariaren hotsa garbiagoa izaten den bezala, teatroan ere era berean jokatu zuten antzinakoek eta, harmoniaren zientziaren arabera antolatuz, indar handiagoa eman zioten ahotsari. Santiago Iruretagoiena

Adarrezko arkuaz armaturik. Agustin Otsoa

Bi ate ditiztek ametsek: bata **adarrezkoa**, bestea marfilezkoa. Juan Kruz Igerabide

6 zuhaitzaren enborretik ateratzen diren besoetako bakoitza. ik **abar; besanga**.

Amorruz atera dute sustraitik eta lurrera bota; ekialdeko haizeak fruituak bota dizkio eta **adarrrak** apurtu. Elizen arteko biblia

Eguzkia oihan debekatuaren atzean sartzen ari zen, zuhaitzen **adar** gorenak urreztatuz. Iñaki Mendiguren

Bide hura zuhaitzen **adar** lodietan bermatuz igotzen zen, mailadi desberdineko eskailera bat osatzen baitzuten adar haiek, **adarrezko** tunel batean sartua. Koro Navarro

Gertuagotik, argi ikus zezakeen zuhaitzaren aurrean hedatzen zen hosto eta **adarrezko** geruza. Joanes Urkixo

Kurutzefikaren eliza hetsia: ez dut ikusiko Kristo famatua, hiru **adarreko** arbolaren edo halako habaila baten forma duen Kurutzea. Piarres Aintziart

7 (izenondo eta izenlagunekin)

Azkenik, astigar baten **adar** gaztea; adarrak alde baterantz luzaturik zeuzkan bere hosto berdeak. Jose Morales

Zedro batzuk hain ziren garaiak, txoriak **adar** goi batean pausatu eta desagertu egiten baitziren bistatik. Felipe Juaristi

Lupinek lurretik **adar** hautsi bat hartu zuela ikusi zuten, eta enborreko adabegia zapaldu zuela. Iñaki Mendiguren

Bide hura zuhaitzen **adar** lodietan bermatuz igotzen zen, mailadi desberdineko eskailera bat osatzen baitzuten **adar** haiek, adarrezko tunel batean sartua. Koro Navarro

Adar hautsiekiko zuhaitzak, lubakiak eta parapetoak nonahi. Koro Navarro

Adar sendoak ihartu egin zaizkio eta suak irentsi. Elizen arteko biblia

Astiro eta nekez, katuka jaitsi ziren itzaletan, itsuka, estropezuka, haitz, sasi eta **adar** idorren artetik arrastaka, behera eta behera segitzerik izan ez zuten arte. Agustin Otsoa

Haizearen ziztu-hotsak, txorien kantu eztiak **adar** hostotsuetan, uraren doinu etengabeak bere isuri oldartsuan. Elizen arteko biblia

Lorez apainduriko makilak, **adar** hezeak eta palmadarrak eskuetan zituztela, gorazarreak kantatzen zizkioten bere toki santuaren garbikuntza egitera eraman zituen hari. Elizen arteko biblia

Zuhaitzek euren **adar** more argiak hedatzen zituzten zeru grisaxkarantz. Lopez de Arana

Harryk, haritz zahar baten **adar** nahasien artetik, argiune bat ikusi zuen aurrerago. Iñaki Mendiguren

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zedro garaiaren adaburutik hartuko dut neuk ere, kimu berri bat hartuko dut haren **adar**-puntatik, eta neuk landatuko dut mendi garai eta bikain batean. hiri gotortua hondaturik gelditu da, baserri hustuaren pare, basamortua bezain bakar. Txekorren larre eta etzaleku bihurtu da; bertara datoz **adar**-kimuak jatera. Elizen arteko biblia

Lizarrari bere beteenean zarba-barda eta **adar**-makilak moztu eta zer edo zertxo bat lehortu. Pello Zabala

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hartu zuen aizkora eskuan, zuhaitz-**adar** bat ebaki eta, bizkarrean harturik, esan zion bere jendeari: "Bizkor, egin zuek ere nik egin dudana". Elizen arteko biblia

Babes bila zebilen geriatrikoko emakume buru balditu bat eraman du gaurkoan, ezki-**adar** hautsi batek jota. Anjel Lertxundi

Zeusen zerbitzariak haritz-**adar** bat sartuko zuen putzu batean, euria lortzeko. Pello Zabala

Geroago, ordoki soil zabalak, oraindik ere negukoa den berde hotz eta arin batekoak, han-hemenka mertxika **adar** arrosek koloreztatuak. Josu Zabaleta

Zeinu erotikotzat zerabilten elorri **adar** loratua turkoen usadioetan ere. Pello Zabala

Nini bizikletan iritsi zen Casalera, Ligugnanako bere lagunarekin; eskulekuan elortxuri **adar** bat zeraman jarrita. Josu Zabaleta

Nahikoa duzu, intsusa-**adar** bat hartu, eta lurrean bere horretan iltzatu eta sartzea: zainak bota, eta hor emango dizu agudo hosto eta lore. Pello Zabala

10 irud/hed

Errege haiengandik **adar** zital-gaizto bat sortu zen: Antioko Epifanes, Antioko erregearen semea. Elizen arteko biblia

Al Kaedak Europan duen **adarreko** buru Abu Duhan al Afganiren bozeramailea zela jakinarazten zuen islamistak bideoan. Berria - Harian

Guztiz judu nintzen edo, bestela, gurasoetatik zein zen judu **adarrekoa**; aitak edo amak -edo biek- zergatik ez zuten legea betetzen eta besoko horia eramaten; lau aitona-amonetatik zenbat nituen judu; jakin egin behar nuen zein zen nire egoera odolaren legearen arabera. Anjel Lertxundi

Baionaren kasuan, dretxoa, ekonomia, literatura (horren barnean euskal estudioak), eta Angelun zientzia **adarreko** ikasleak dira sartzen. Herria

Borbondarren karlista **adarreko** hainbat handiki hilobiratuta dago bertan. Anjel Lertxundi

Zehazki, euskal **adarreko** 165 ikasle, erdal **adarreko** 110 ikasle eta 53 irakasle galdekatu zituen. Berria - Euskal Herria

Nazabalek Banakako Urrezko Aizkolarien Lehiaketako finalerdira sartu da, B **adarrean**, eta A **adarreko** bigarren sailkatuaren aurka jokatuko du maiatzaren 30ean, Aian. Berria - Kirola

Gabezia horrek, hau da, albo-**adarreko** ahaiderik ez izateak, eta horren ondoriozko aitarengandik semearenganako igorpenak, desbiderapenik batere gabe, parekatu bide zituen bata eta bestea. Koro Navarro

Moriko Gurutze-eramaileen edo Gurutze Santuaren Ordenako **adar** italiarrekoa zenl 1169an Alejandro III.ak Erregela eta Konstituzioak eman zizkien. Askoren artean

Tximista normalean, **adar** askotan zatitua etorri ohi da. Pello Zabala

Beheruntz datorren tximist **adar** batek gidatxoarekin tupust eginaz gero, hor lehertzen da izugarrizko danbarrekoarekin. Pello Zabala

Irtish ibaiaren **adar** nagusietako bat zeharkatu beharra izan zuten, Ishim izenekoa. Karlos Zabala

Gero, urki bikainen itzalpean uharte osoa gurutzatu eta Jenisei ibaiaren **adar** txikira heldu ziren. Karlos Zabala

Jenisei ibaia versta eta erdi zabal da leku hartan, eta bi **adar** nagusi ditu, bata bestea baino handiagoa. Karlos Zabala

Auto abarrikatu baten pusken artetik agertzen diren soin-**adar** zatikatuak, bide bazterretako erretenean; Itsaso barreneko bapore-untzi batek ke **adar** luzea marraztu zuen airean. Aingeru Epaltza

Errazago zeharkatu zuten bigarren ur **adar** hori. Karlos Zabala

Tarteka, zigarro bat biltzen zuen eta erneago aditzen zien, ezpain bazterretik ke **adar** meheak botatzen zituen bitartean. Karlos Zabala

Han zegoen eserita, eskua lema-**adar** gainean eguzkitan, faroari adi-adi begira. Anton Garikano

Ezin garbiagoa da, ikuspuntu guztietatik begiratuta ere, nire laginean agertu dudan hirugarren ikerketa-**adar** hau. Anjel Lertxundi

Arazo tekniko gisa, ingeniaritzaren bi **adar** hartzen ditu usaimenak. Irene Aldasoro

Europako Batzordeak bi **adarreko** 'holding'-a ez onartzea aitzakia dela iritzi diote langileen ordezkariek. Berria - Ekonomia

Eta hara non **adar**-ezarle jelostua tiroka abiatua -Potzoloren eri zuzena pistola bateko kanoi bilakatu zen-. Aingeru Epaltza

Adar biko enpresari eutsi arren, SEPIk ez du edukietan sakondu. Berria - Ekonomia

Hiru **adarreko** kapeluz jantziriko soldaduak. Jose Morales

Bost **adarreko** izarra. Koldo Izagirre

Zazpi **adarreko** argimutil zenbait ageri ziren, argi eternalez izekiak. Juan Garzia

Bat-batean ikusi dut, ilunabarreko urdinean, hiru **adarreko** argimutil horren eztanda ernetzen! Josu Zabaleta

Izar taldea zatitzeko asmoaren isla da **adar** biko 'holding'-a: ontziola zibilak hondoratuko ditu Abatskoieko geldilekuan. Berria - Ekonomia

Europatik harriz harri inportatutako gazteluak, ibai-**adar** zabaletan gora garraiatuak.· Bilkari etiketadunak kutxatilategitan sailkatuta zeuden, horma-armairuen barruan,

jakintza- **adarka** sailkatuta: literatura, filosofia, zientzia eta teknika. Jon Muñoz

11 *adkor, pl (bikoteko kide baten ezkontza desleialtasuna adierazteko)*

Amodio lizunak, jelosiak, adulterioak eta **adarrak** agertzen dira nonahi. Berria - Kultura

12 ***adar-aldaxka*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Tankeek geldo-geldo egiten zuten aurrera, **adar-aldaxkez** estalita eta hautsez beteta. ETC-literatura, saiakera

Zin-hitzak izan balira ez nien baliotsuago iritziko aluminio-paperean bilduta jaso ditudan denetariko lore eta barazkien hazi, **adar-aldaxka** eta zuhaitzen mentu-zotzei. ETC-literatura, saiakera

Adar-aldaxkak : landare bati ateratako kimu-adar bat lur hezean edo uretan sartu ondoren, sustraiak ateratzen zaizkio eta horrela lortzen da beste landare bat. ETC-entziklopedia

13 ***adar armatu***

Ministroa 2001ean hil zuen FPLPren **adar armatuak** , Israelgo Armadak lehenago erakundeko idazkari nagusi Abu Ali Mustafa hil zuela mendekatzeko. Berria - Mundua

Bost urteren buruan, Turkiarekiko su-etena amaitutzat eman zuen ekaina hasieran Kurdistango Herri Defentsa Indarren (HPG) buruzagitzak, Kongra-Gelen **adar armatuak** . Berria - Mundua

"Demokrazia eta legearen alde gaudela berresten dugu eta hauteskunde hauek galarazteko edozein jokaerari arbuio diogu», zioen Al Aksako Martirien Brigadek eta Hamasen **adar armatu** Izzedin al Kassam Brigadek, besteak beste, izenpetutako ohar hark. Berria - Harian

Hernanikoa gertatu da PP, PSOE, EAJ, EA eta IU-EBren **adar armatuek** , Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak, egin dutenaren ondorioz. Berria - Euskal Herria

14 ***adar asintotiko erraldoi*** *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Adar asintotiko erraldoia (RAG,) masa ertaineko (0,5 eta 9 edo 10 eguzki masa) izar guztiek euren bizitzaren amaieran izaten duten izar eboluzioaren periodo bat da. ETC-entziklopedia

15 ***adar bakar*** ik **adarbakar**.

Adar horiekin edalontziak egin daitezke eta norbaitek pozoia botako balu edalontzi horietako batera, pozoi horrek ez lioke kalterik egingo edango lukeenari, zaldiaren eta astoaren **adar bakar** horrek pozoiaren aurkako ezaugarriak baititu eta haren eragin kaltegarriak ezereztatzeko gai baita. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Bada adarbakoitza izeneko animalia bat, garbia eta garbi zalea, **adar bakarragatik** guztiz preziatua, baina ehiztariek harrapatu ezin dutena. Anjel Lertxundi

Eta, orotan onena, **adar bakar** batek ere ez zuela mailaturik. Anjel Lertxundi

16 *adar buru* ik **adaburu**.

17 ***adar eta orrien diagrama*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Estatistikan, **adar eta orrien diagrama** aldagai bakarreko datuak azaltzeko datu diagrama bat da, histogramaren antzekoa, baina abantaila moduan datu guztien banako balioak modu ordenatuan atxikitzen dituena, histogramak ez bezala. ETC-entziklopedia

18 ***adar horizontal*** *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Adar horizontala (AH, ingelesez horizontal branch), masa ertaineko (0,5 eta 9-10 eguzki masa arteko masadunak) eta metaltasun txikiko izarren izar eboluzio eboluzioko fase berantiarretako bat da. ETC-entziklopedia

Intuizioz, ikusten da diseinu trinkoetan zenbait lokaletarako gorako hodi komunek eragin handiagoa dutela sare osoan, **adar horizontalen** ibilbideek baino. ETC-zientzia, zuzenbidea

19 ***adar ingeles***

Oboe eta **adar ingelesaren** soinuak gailenduko dira igande eguerdian hasiko den kontzertuan. Berria - Kultura

20 ***adar-jotzaile*** [1] *(orobat **jole**) iz* adarra jotzen duen musikaria.

Parte-hartzaileak: dultzaineroak, txalapartariak, **adar jotzaileak** eta galiziar gaiteroak. Berria - Kultura

· Eta biola-joleak egon ziren, baita txirula eta zilarrezko **adar-joleak** ere Agustin Otsoa

21 ***adar-jotzaile*** [2] *(orobat **jole**) izond* isekaria.

Gizon irekia, irribarretsua, **adar jotzailea,** "gutako bat" esateko moduan. Pako Aristi

Tximista bezain bizia, etorri handikoa, **adar-jotzailea** eta alproja samarra, bera hautatu nuen jostatzen nintzen haur guztien artetik. Joxan Elosegi

Adar-jotzaile handia izan da Jexux betidanik. Xabier Etxabe

George Gamow **adar-jotzaile** galanta zen. Fernando Morillo

Inondik ere, zure lepotik barre egin nahi izan du **adar-jotzaileren** batek. Jose Morales

Abuztuko euri **adar-jotzaile** bat, bete ezin dituen itxaropenak ernatzen dituena. Anton Garikano

· *adlag* Noizik behin, zertan ari nintzen ikustera etortzen zen, **adar-jotzaile** eta burlati. Juan Garzia

22 ***adar-jotze*** iseka egitea.

Noiz arte **adar-jotze** hau, burla hau, gezur hau, infernu hau, txerrikeria hau, zirko hau...? andre hark, nonbait, gogokoak zituen **adar-jotzeak** . Iñaki Segurola

-Utzi **adar jotzeak** -dio eta begiratzen du argirantz, seguru egoteko hotz-etxolan dagoela eta ez ametsetan. Anton Garikano

Nire bizitza **adar jotze** handi bat da, hasieratik bukaeraraino. Koro Navarro

Lagun santu haiek oso **adar-jotze** dibertigarria egin nahi izan zidaten. Iñaki Mendiguren

Eta dena Siriusek egin zion **adar-jotze** zentzugaberen batengatik... Iñaki Mendiguren

Jendearen artean nahasturik eta burumakur, problemarik gabe iritsi nahi nuen gelara, inoren galdera ahogorririk eta **adar-jotze** alurik gabe. Anjel Lertxundi

Gure galdera eta **adar-jotze** lotsagabeekin haserretzen genuenean. Anjel Lertxundi

Baina Neska putaziringa zakil-berotzailearen **adar-jotze** krudelak larregikoak ziren. Jon Arretxe

Oso ona zure **adar jotze** hau, izugarri ona, bai. Koro Navarro

Adar jotze xume eta lagun artekoak izaten ziren, ez inola ere aintzat hartzekoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Salatu dutenez, hamasei hilabete daramatzate lan hitzarmenik gabe eta **"adar-jotze** hutsa da" patronalaren eskaintza. Berria - Ekonomia

Buruzagi sindikalak botoa eman ondoren esan zuen erreferenduma **"adar-jotze"** bat izan zela. Berria - Mundua

Mesfidantzaz begiratu zidan, nire ihardespenean **adar-jotze** aztarnarik ote zen mamitu nahirik edo. Aingeru Epaltza

23 ***adar karlista*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Nafarra zenetz galdetu zion Inazioren aitak, "Nafarra al zara?", semeak **adar karlistaren** batean txertatu behar ote zuen kezkaturik. ETC-literatura, saiakera

Espainiako errege-erreginen zerrenda Espainiako erregetza lortzen ahalegindu zen Borboiko etxeko (**adar** karlista) lehen kidea izan zen. ETC-entziklopedia

24 ***adar nagusi***

Po ibaiaren **adar nagusia** , Dora Baltea, bete-betea dator, sasoi honetan gertatzen baita glaziarretako elurren urtze nagusia Berria - Kultura

Arratsaldeko lauretan, hirurogeita hamabost versta urrunago, Abatskoieko geldilekuan, Irtish ibaiaren **adar nagusietako** bat zeharkatu beharra izan zuten, Ishim izenekoa. Karlos Zabala

Jenisei ibaia versta eta erdi zabal da leku hartan, eta bi **adar nagusi** ditu, bata bestea baino handiagoa. Karlos Zabala

-Esan al dizu **adar nagusitik** zetorrela... badakizu... Lopez de Arana

Po ibaiaren **adar nagusia** , Dora Baltea, bete-betea dator, sasoi honetan gertatzen baita glaziarretako elurren lurmentze nagusia. Anjel Lertxundi

25 ***adar-txordo*** *izond* adarrak beherantz dituena.

Diana adar- **txordo** hau beti izan da animalia moldakaitza, azken boladan izan duen behirik izuena. Patxi Iturritegi

26 *adar zupatzaile* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Horien ondotik, akain-belarraren (edo **adar zupatzailea**) eta pinaziaren (jatrofa) monolaborantza eremu handiak etorri izan dira. ETC-prentsa

Emankorrak ez diren **adar zupatzaileak** kentzen dira: zahartuta dauden adarrak inausi eta zuhaitzari oreka ematen saiatu behar da, fruitu gehiegi eman ez dezan. ETC-prentsa

27 *adarra jo*[1]

Jagoleak, arerioa datorrela ikustean, **adarra jotzen** du jendea ohartarazteko. Gedeonek **adarra jo** eta bere ondoan bildu zituen Abiezerren senitartekoak. Elizen arteko biblia

Rohango **adarra joko** diat, eta inoiz entzun gabeko musika entzungo ditek. Agustin Otsoa

28 *adarra jo*[2] iseka egin.

Hala ere, haren begitartean ez zuen txantxetan edo **adarra jotzen** zebilelako aztarnarik nabaritu, aitzitik, benetan ari zen. Migel Angel Mintegi

Erdeinu handiz begiratzen zion Louiseri, honek, xingolazko korapiloak ageri-agerian, **adarra jotzen** zionean lepoko zapia oker lotua zeramalako. Karlos Zabala

Ja ez dira **adarra jotzen** dabilen norbaiten txantxak, beldur naiz. Antton Olano

Baina benetan gero, ez beren buruei **adarra jotzeagatik**! Iñaki Segurola

Ugazabek **adarra jotzen** zigutek! Karlos Zabala

-Emakume hori **adarra jotzen** ari zitzaidan -esan zuen Jamesek. Koro Navarro

Beste mutilek **adarra jotzen** zidaten haren kontura. Mirentxu Larrañaga

Ximurrak adarra galanki **jo** ziguk behin berriz. Aingeru Epaltza

-Ez dago niri **adarra joko** didan oilartxo harrorik -esan zuen Txoriburuak, zutituz. Josu Zabaleta

Negar eginarazteraino **adarra jotzen** zionean. Karlos Zabala

-Adarra jotzen ari nintzen, besterik ez. Koro Navarro

- **Adarra jotzen** ari zara? -esan zuen, haserre, Petukhek-. Jose Morales

Adarra jo nahian, ala? Joanes Urkixo

Adarra jo nahi ote zion? Migel Angel Mintegi

Ez adarrik **jo**. Fernando Morillo

· Urdaila beste gauetan baino arinago zuela ohera zihoan bitartean, Eligio **adar** jotzen ari zitzaion barrez: [...]. Josu Zabaleta

29 *adarrak ipini*

Heldu-lekuaren kiribildura aker-adarren antzeko hari esker, Dorak bizikleta baten eserlekuarekin **adarrak ipini** zizkiola irudikatu gura izan zuen, nonbait. Harkaitz Cano

30 *adarrak izan*

Lehenbiziko kasuan, nire ondorioa da, "emakumeekin ere bai" esan nahi dute eta, bigarrenean, gure amonaren ondorioa da, senarrak **adarrak ditu**. Karlos Zabala

31 *adarrak jarri*

Kasik guztiz ziur nago amak **adarrak jartzen** zizkiola aitari aitaren anaia batekin eta beharbada beste batzuekin; bai, beste batzuekin ere bai. Karlos Zabala

Hor dago Ixidro irribarre zabal zabal batekin, hor dago Agustin albokoari **adarrak jartzen**, hor dago azken ilaran Emilio, ilehoria, izkinatik burua gora luzatzen, futuroaren preteritoan ez agertzeko beldurrarekin, nire burua ere hor dago bigarren ilaran ezkerretik seigarrena... Joseba Sarrionandia

Jonek "Iepa, Takolo! Zer, Porrotxi **adarrak jartzen** ala?" edo antzeko xelebrekeriaren bat espero zuen, baina begiratu ere ez diete egin erdi-erditik aurrera egin dutelarik. Jokin Muñoz

Emazteak **adarrak jartzen** zizkiola ez zuen sinetsi nahi, baina dudaren harrak gero eta zulo handiagoa egiten zuen zaldunaren bihotzean. Martin Anso

Eta nik, zirkunstantzia haietan, nola erranen nion, bada, ezetz, zeren edozertarako prest bainengoen, baita neure buruari **adarrak jartzeko** ere, orain amorante eta orain senar, haren zerbitzaririk tipiena eta obligatuena banintz bezala...! Joan Mari Irigoien

Iruditzen zait fideltasuna haustea bezala dela, **adarrak jartzea**, nahiz eta neure buruarekin izan. Luis Elberdin

Normalean, Marcel Martinen arazoa alde batera utzi eta adulterioaz hitz egiten hasten ziren, sarriago **adarrak jartzearen** inguruko txisteak kontatzen edo, okerrago dena, biologiarekin eta eskubidearekin loturiko gai teknikoak eztabaidatzen. Ramon Saizarbitoria

Gnôr Grassiadiô masoia zen eta aberatsa oso: apur bat lotsaturik zegoen judu izateaz, eta lurrerainoko ile hori luzeko "gôià" bat -hots, emakume kristau bat- hartu zuen emazte, zeinak **adarrak jartzen** baitzizkion. Juan Garzia

Ildo horretakoak dira proposatutako beste neurriak: parke teknologikoen klonazioa, eta merkataritza ganberek atzerrian **adarrak jartzea**, besteak beste. Berria - Ekonomia

32 *adarretatik heldu* dio *ad*

Zientzialariak iritzi dio gobernuek zezenari **adarretatik heldu** eta Riminin (Italia) sinatutako ituna onartu beharko luketeela. Berria - Ekonomia

Arazoari **adarretatik heltzen** saiatu ordez, minduarena eginez hitz egin zidan. Anjel Lertxundi

Elkarteak ez luke ondo egingo dagoen krisiari **adarretatik heldu** eta konpontzeko bideak jarriko ez balitu. Berria - Harian

Gaiari **adarretatik heldu** eta sakon aztertzen hasteko asmo tinkoa dute. Berria - Kirola

Bizitza osoa gerorako prestaketan, eta, etorkizunari **adarretatik heltzeko** gauza garela uste dugunean, ohartzen gara iraganak ez digula iragana beste etorkizunik utzi. Joxerra Garzia

· Antza, Seaskak **adarretatik heldu** nahi izan dio behingoz zezenari. Hasier Etxeberria

33 *ahuntzak adarrak dituen aldera* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Inperioa jaisten ari da eta, esaerak dioenez, **ahuntzak adarrak dituen aldera** begira behar izatea, bestela bezala arituz. ETC-prentsa

34 *akerraren adarrak baino okerrago*

Halako batean bere obra bukatutzat eman zuenean, etxekoandreak, ikusirik gailua, hodiak eta enparauak zein bere aldera eta denak **akerraren adarrak baino okerrago** zeudela, honela esan zion, negar-zotinen artean oihuka. Joxerra Garzia

35 *albo-adar*

Banuen halaber gertaera guztiz ohargarri baten berri, alegia, Usher arrazaren leinuak ez zuela inoiz **albo-adar** iraunkorrik sortu. Koro Navarro

Gabezia horrek, egin nuen neure artean, buruan nerabilelarik zeinen antzekoak ziren jabetzaren nolakotasuna eta biztanleena, eta mendeen joanean ez ote zuten eraginik izan batak bestearen gainean; gabezia horrek, hau da, **albo-adarreko** ahaiderik ez izateak. Koro Navarro

Ile-folikulu ia guztiek **albo-adar** bat dute, bilgorra sortzen duen guruin txiki batera ematen duena. Irene Aldasoro

36 *arteria-adar* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Porta zainaren adar fin bakoitzaren ondoan, arteria hepatikoko adar finak daude, eta anastomosi ugari daude zain- eta **arteria-adarren** artean. ETC-zientzia, zuzenbidea

P mm Hg eta Q mL/min **arteria-adar** baten muturren arteko presio-diferentzia eta adarra zeharkatzen duen odol-fluxua diren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Urdaileko arteria laburrak bost-zazpi **arteria-adar** txikiak dira, eta arteria esplenikoaren banaketa-adarretan sortzen dira barearen hilioan. ETC-entziklopedia

37 *beheko gorputz adar*

Batez ere, **beheko gorputz adarrei** egiten die kalte, eta tronbosia (tronboflebitisa) sor dezake. Berria - Gaiak

Horrek aldaketa handiak ekarri zituen, bai **beheko gorputz adarretan**, bai pelbisean, bai ipurmasaileko giharretan, bai bizkarrezurrean eta baita lepoan ere. Luis Elberdin

38 *erroak utzirik adarrei lotu* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Baina, **erroak utzirik adarrei lotu** beharrean, sustraira buelta nadin, arbiaren zanbroarena beste baterako utziko dut. ETC-prentsa

A, bai, **erroak utzirik adarrei lotu** natzaiela. ETC-literatura, saiakera

Orduan ulertu nuen inoiz baino hobeto nondik noraino ibilia zen Grose andrea **erroak utzirik adarrei loturik** eta zenbateraino akitu zuen hark guztiak. ETC-literatura, saiakera

39 *gorputz adar* *(120 agerraldi, 26 liburu eta 4 artikulutan; ETCn 832 agerraldi; orobat **gorputzadar** 70 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 79 agerraldi) pl* besoak eta zangoak

Ugaztunen eskeletoaren jatorrizko diseinuan, zubi bat zen bizkarrezurra, alde banatan **gorputz-adar** pare bat euskarri zituena. Irene Aldasoro

Bidearen bihurgune bakoitzean, landutako harri handiak goratzen ziren, **gorputz adar** astuneko giza irudi eskergak, kokoriko jarrita, bernak gurutzaturik, besoak tripa irtenen gainean pausaturik. Agustin Otsoa

Lau **gorputz** adarrak zabal-zabalik, burua odoletan. Karlos Zabala

Bai beheko **gorputz adarretan,** bai pelbisean, bai ipurmasaileko giharretan. Luis Elberdin

Gorputz adarrei eragin eta ezin mugitu. Sonia Gonzalez

Une hartan agure zahar okitu bat sartu zen, urteek **gorputz-adar** bakar bat ere onik utzia ez ziotena. Patxi Zubizarreta

Zainen uzkurduraz **gorputz**-adarrak zurrun zituen, hildako batek bezala. Askoren artean

Hogeita hamaika nerbio pare irteten dira bizkar-muinetik [...]; handik, nahiko modu konplikatuan, enborrera eta **gorputz-adarretara** banatzen dira batez ere. Irene Aldasoro

Nikanorren gudari gehienak zauritu zituzten, **gorputz-adarrak** moztu zizkieten eta denei ihes eragin zieten. Elizen arteko biblia

Leokaresen esku ospetsutik ateratako *acroliton* irudi edo harrizko **gorputz**-adarrak dituen estatua erraldoi batekin. Santiago Iruretagoiena

· Hezkuntza orokorra gorputz bakar bat bezala da, **gorputz**-adar desberdinez osatua. Santiago Iruretagoiena

Gaitzak azala eta nerbioak hondatzen ditu eta garaiz harrapatu ezean, betirako kaltetu ditzake azala, nerbioak, begiak eta **gorputzadarrak**. Berria - Gaiak

40 *ibai adar* ik **ibaiadar**.

41 *ke adar* *(orobat **keadar** g.er.)*

Zerua itotzen duen **ke** adarra. Felipe Juaristi

Itsaso barreneko bapore-untzi batek **ke adar** luzea marraztu zuen airean. Anton Garikano

Ke adar zenbaitek, zeru ertzetik gora kiribilka, herrixkak eta baserriak oraindik erretzen ari zirela adierazten zuten. Karlos Zabala

Keadar beltzak ageri ziren Najafeko hainbat auzuneren gainetik airatzen. Berria - Mundua

Ni hemen azken tximinoa nauk... - **ke adar** luzea jaurti nuen "Ez erre hemen, mesedez" zioen txartelaren aldera. Aingeru Epaltza

42 *merkataritza-adar*

Ezinezkoa da hainbeste **merkataritza-adarretan** sofrituko duen baten bat ez izatea, eta ondorioz bertako langileak uneren batean beharrean ez izatea. Iñaki Iñurrieta

43 *ohe adar* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Teknikan: Itxuragatik, Altzarigintzan: **ohe adar**. ETC-literatura, saiakera

Ohe adarrean zilintzo dagon erizainen txoxtenari behatu eta holaxet mintzatu zitzaitan: ETC-literatura, saiakera

44 *palma-adar* *(orobat **palmadar**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **palma-adar** agertzen da)* palmondo adarra.

Udaberrian ospatzen genuen guk jai hura Obaban, Jesus Jerusalenera **palma** adarren artean sartu zela gogoratuz. Bernardo Atxaga

Orduan, anaiek, pozez gainezka, korura joan ziren eta, gurutzeak, intsentsu-ontzia, **palma**-adarrak eta kandela piztuak eskuetan harturik, binaka prozesioan korutik elizara sartu ziren. Askoren artean

Garaipen ospetsuaren **palma**-adarra lortu baitzuen. Askoren artean

45 *palmondo adar* ik **palma 3**.

FUNAI Indioen Fundazio Nazionaleko beharginen arabera, talde hura oso ahulduta zegoen, lastoz edo **palmondo** adarrez egindako txabolatan ezkutatuta. Berria - Gaiak

Palmondo adarrak, garaipenaren edo sariaren sinboloak dira. Herria

Badoaz piloteen gainean eraikitako etxoletarantz **palmondo** adarren artean burua makurtuz. Patxi Iturritegi

Palmondo adarrak harturik, oihuka hasi zitzaizkion: Hozanna! benedikatua Jaunaren izenean datorrena! Herria

46 *soin adar*

Soin-adarrak luze, giharrak teinkaturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Auto abarrikatu baten pusken artetik agertzen diren **soin-adar** zatikatuak, bide bazterretako erretenean. neguko hilaldia bere baitan sartzen zitzaizkiola iruditu zitzaion, odola gelditu eta izoztuko ziotela, **soin atalak** zurrunduko zizkiotela. Aingeru Epaltza

Berrehun hildakotik gora, haur eta emakume ugari kiskalita eta **soin-adarrik** gabe. Berria - Mundua

Haur potolo bat atzera ari da geratzen: nekearen zama sentitzen du **soin-adarretan**, igurtziaren gorria izter lodi bien barnealdean. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskua luzatu gabe ere, halako deskarga elektriko batek zizta egin zidan beheko **soin-adarretan**. Aingeru Epaltza

Eztarria idortu zitzaidan, **soin-adarrak** txinaurritu. Aingeru Epaltza

47 *trumoi adar*

Burdinezko orpoak ilinti izanikzauri gorri utzi zituzten garo sailak **trumoi adarretan** loreak xurgatuz hona eztia lurreratzen duen behatza. Patziku Perurena

48 *ugaritasunaren adar*

Ugaritasunaren adarra, zarrastelkeria, ustelkeria, zer ez. Iñaki Iñurrieta

49 *zain adar* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Neure begiez ikusia nuen, borrokaldi hartan, Stefanorengan bizirik zegoela bere aitaren mamua, Don Achilleren itzalak semearen lepoko zainak eta kopetako azalaren azpiko **zain-adar** urdinak puzteko adinako indarra zuela. ETC-literatura, saiakera

Oro har, **zain adar** bat beste zain handiago bati lotzen zaion gunea baino lehenxeago egoten dira. ETC-entziklopedia

50 *zezenari adarretatik heldu*

Donostiako Udalak **zezenari adarretatik heltzea** erabaki du nonbait, eta iragarri du jada zenbait diru jarriko duen Anoetako Belodromoaren teilatua konpontzeko: milioi bat euro. Berria - Kirola

Onerako edo txarrerako normalean **zezenari adarretatik heltzearen** aldekoa nauzue. Migel Angel Mintegi

Inertziak eta gogorik ezak bakarrik eragotzi izan zioten '**zezenari adarretatik heltzea**", dio, baina prezioa ona balitz, minutu batean utziko luke guztia. Oskar Arana

Zuk Traidorearen eta heroiaren gaia izeneko nobela bat idatziko zenuke **zezenari adarretatik heltzeko** potrorik bazenu. Jon Alonso

Txantxak finitu dira eta egoera konpondu nahi bada, **zezenari adarretatik heldu** beharra dago, Patri, geratzen zaigun erabili gabeko arma bakarrarekin. Hasier Etxeberria

Zientzialariak iritzi dio gobernuek **zezenari adarretatik heldu** eta Riminin (Italia) sinatutako ituna onartu beharko luketeela. Berria - Ekonomia

51 *zuhaitz adar* *(orobat **zuhaitzadar** g.er.)*

Hartu zuen aizkora eskuan, **zuhaitz-adar** bat ebaki eta, bizkarrean harturik, esan zion bere jendeari: [...]. Elizen arteko biblia

Zuhaitz-adarrak ihartu eta hautsi egiten dira, eta suegurretarako biltzen dituzte emakumeek. Elizen arteko biblia

Txoriak isilik zeuden **zuhaitz adarretan**. Bernardo Atxaga

Txoriak armadura ikusi orduko, ezkutatu egiten ziren habietan edo **zuhaitz adarretan**. Felipe Juaristi

Kanpin-gasezko argi bat paratu dute zirkuluaren erdian, eta beste bat aldamen batean goian, **zuhaitz-adar** batetik zintzilik. Xabier Mendiguren Elizegi

Gorazarre eta gorespen artean eta **zuhaitz-adarrak** eskuetan zituztela. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adar armatu (13); **adar armatu izzeddin** (5); **adar armatua** (14); **adar armatuak** (12); **adar armatuko** (5); **adar artean** (11); **adar asko** (7); **adar bakoitzak** (4); **adar bakoitzeko** (4); **adar bana** (5); **adar bat** (83); **adar bat da** (4); **adar batean** (11); **adar batek** (14); **adar baten** (24); **adar baten gainean** (8); **adar batetik** (18); **adar batetik bestera** (4); **adar batetik zintzilik** (5); **adar bati** (8); **adar batzuetan** (4); **adar batzuk** (11); **adar berezia** (5); **adar berri** (7); **adar biko** (11); **adar biko holding** (7); **adar biluzien** (5); **adar eta** (20); **adar guztiak** (6); **adar guztien** (4); **adar handi** (8); **adar handiak** (4); **adar hautsi** (5); **adar hilaren** (25); **adar hilaren hamahiruan** (6); **adar hilaren hamalaua** (5); **adar hilaren hamalauan** (4); **adar hori** (8); **adar hots** (5); **adar hotsa** (8); **adar hotsen** (4); **adar joka** (12); **adar jotzaile** (7); **adar jotzailea** (6); **adar jotze** (36); **adar jotzea** (10); **adar jotzeak** (7); **adar jotzetzat** (4); **adar lodi** (6); **adar luze** (5); **adar luzea** (4); **adar militarra** (4); **adar nagusia** (8); **adar soinuan** (5); **adar txiki** (4); **adar zibila** (4); **adarrez adar** (8); **baina adar** (4); **bat adar** (5); **baten adar** (12); **bere adar** (13); **bere adar armatua** (5); **beste adar** (17); **beste adar bat** (5); **beti adar** (5); **bi adar** (23); **da adar** (5); **du adar** (4); **edo adar** (6); **erakundeko adar** (4); **ereinotz adar** (4); **eta adar** (47); **eta bere adar** (4); **gorputz adar** (13); **hamar adar** (5); **hamaseko adar** (5); **hamasen adar** (9); **haren adar** (15); **hiru adar** (8); **horren adar** (4); **ibai adar** (4); **ibaiaren adar** (8); **ilargiaren adar** (5); **ke adar** (8); **kulturaren adar** (5); **lau adar** (4); **poliziaren adar** (6); **zen adar** (5); **ziren adar** (7); **zuen adar** (4); **zuhaitz adar** (10); **zuhaitz adar bat** (4); **zuhaitzen adar** (10); **zuten adar** (4)

a adarreko (7); **adarra da** (6); **adarra ere** (5); **adarra eta** (10); **adarra etxe** (5); **adarra ez** (5); **adarra gauez** (4); **adarra jo** (80); **adarra jo nahi** (15); **adarra jo nahian** (8); **adarra jo zion** (6); **adarra jo zuen** (5); **adarra joko** (17); **adarra jotze** (4); **adarra jotzea** (12); **adarra jotzeko** (25); **adarra jotzen** (139); **adarra jotzen ari** (53); **adarra jotzen diote** (4); **adarra jotzen hasi** (5); **adarra jotzen zidan** (5); **adarra jotzen zion** (6); **adarra jotzen zioten** (4); **adarra joz** (7); **adarrak astindu** (4); **adarrak ditu** (4); **adarrak eskuetan** (6); **adarrak eta** (18); **adarrak ez** (4); **adarrak hausten** (4); **adarrak igurtziko** (7); **adarrak igurtziko ditu** (6); **adarrak jartzen** (8); **adarrak jotzen** (4); **adarraren inguruan** (4); **adarraren inguruan** (4); **adarrek ere** (4); **adarreko lehen** (5); **adarren artean** (11); **adarren artetik** (4); **adarretako bat** (6); **adarretarik ibili** (4); **adarretarik ibili gabe** (4); **adarretatik heldu** (6); **adarretatik heldu eta** (4); **adarretatik heltzeko** (4); **adarretatik zintzilik** (4); **adarretik zintzilik** (5); **adarrez adar** (8); **adarrik ez** (7); **adarrik jo** (19); **aldare ertzeko adarrak** (10); **arbolaren adarrak** (4); **asegarceren adarreko** (5); **batek adarra** (8); **batek adarra jo** (4); **baten adarrak** (7); **bi adarrak** (9); **bi adarreko** (4); **bi adarretako** (7); **bi adarretan** (6); **bidezango eta adarrandi** (5); **dit adarra** (5); **elkarri adarra** (4); **ere adarra** (5); **ere adarra jotzen** (4); **ereinotz adarra** (4); **ertzeko adarrak** (10); **ertzeko adarrak igurtziko** (7); **eta adarra** (25); **eta adarra jotzen** (7); **eta adarrak** (39); **eta adarrandi** (5); **eta adarren** (6); **eta adarretan** (6); **eta gorputz adarrak** (4); **eta su adarra** (4); **ez adarra** (4); **ez adarrik** (16); **ez adarrik jo** (14; **gorputz adarrak** (26); **gorputz adarretako** (4); **guri adarra** (5); **haren adarretan** (4); **hiru adarreko** (5); **iparraldeko adarrak** (5); **kanela adarraren** (4); **kanela adarraren** (4); **ke adarrak** (4); **lagunek adarra** (4); **laino adarra** (11); **niri adarra** (13); **ortz adarra** (5); **soin adarretan** (4); **su adarra** (6); **su adarra gauez** (4); **zen adarra** (4); **zezenari adarretatik** (8); **zilarrezko adarra** (4); **zion adarra** (8); **zituen adarrak** (4); **zuen adarra** (9); **zuhaitz adarrak** (10); **zuhaitz adarren** (6); **zuhaitz adarretan** (7); **zuhaitz adarrez** (6); **zuhaitzen adarrak** (4)

---

adarailu ik **adreilu**.

---

adarbakar *(ETCn **224** agerraldi; orobat **adar-bakar**)* **1** *izond* adar bakarra duena. ik **unikornio**.

Ez zen zaldia; ez zen **adarbakarra** ere. Iñaki Mendiguren

Adarbakarra deitu izan zaio errinozeroari -*Rhinoceros unicornis* deituari, greko eta latineko deitura itzuliz sudurrean adar **adarbakarra** deituari- eta, batez ere, **adarbakarra** deitu izan zaio unikornio izenez hain ezaguna den animalia mitologikoari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Adarbakar edo unikornioaren mitoa India aldetik etorri eta ederki txertatu zen Europan, bereziki herri germaniar eta eskandinaviarretan. Martin Anso

Adarbakoitza izutia, azkarra eta ihes egiten trebea omen zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mota ugaritakoak dira, baita ere, protagonistak: emakume-oreina, **adarbakarra**, sorginak, giza-otsoa, piratak, jauntxo ankerrak, hamaika motatako pertsonaien inguruko kondairak jaso ditu Ansok. Berria - Kultura

Ermitaua eta printzesa, atzean Nafarroako arkularirik onenak segika zituztela, basoan barrena abiatu ziren, **adarbakarrak** gustuko omen zuen iturriaren bila. Martin Anso

Adarbakarra garbitasunaren eta purutasunaren sinbolo da. Martin Anso

Diotenez, oraindik ere entzun daitezke **adarbakar** -irrintziak, gauez, Betelu aldeko baso-mendietan. Martin Anso

2 ***arrain adarbakar*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arrain adarbakarra ("Naso") Acanthuridae familiako genero baten izen arrunta. ETC-entziklopedia

---

adarbakoitz *(ETCn **66** agerraldi)* *iz* adarbakarra.

-Bada **adarbakoitza** izeneko animalia bat, garbia eta garbi zalea, adar bakarragatik guztiz preziatua, baina ehiztariek harrapatu ezin dutena. Anjel Lertxundi

Alegiazko animalia honi **adarbakoitza** esaten zioten testu zaharretan eta Herioaren iruditzat erabili izan da euskaraz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mahaiaren atzeko gizonari Hagridek oinarrizko edabe-osagaiak eskatzen zizkion bitartean, Harryk **adarbakoitzen** adar zilarreztatuak aztertzen zituen. Iñaki Mendiguren

Ehiztariek, **adarbakoitzaren** barruan afrodisiakorik gorenena gordetzen dela jakinik, neskatxa birjina bat hartu, eta **adarbakoitzaren** bidean jartzen dute. Anjel Lertxundi

-Gizotso batek akaba ditzake **adarbakoitzak**? -galdetu zion Harryk. Iñaki Mendiguren

---

adarbe *iz* gotorleku bateko harresia; harresi hortako goialdea.

Poliki-poliki dorrea altxatzea posible egiten duten operazio horiek guztiak, dorreak, Babelgoa ez izanik ere, harresiko **adarbea** baino altuxeago igo behar du behintzat. Jon Alonso

Harresiaren aurka danbadaka ari ziren beste bi dorreak ziren, bertatik zubiak egiten zituzten eta zubietatik soldaduek **adarbeak** inbaditzen zituzten. Jon Alonso

Arco Escurotik sartu da, eskailera ezagutzeko, historialariak baieztatzen duelako eskailera hori zela, garai haietan, harresiko **adarbera** sartzeko zegoenetako bat. Jon Alonso

---

adarbegi ik **adabegi**.

---

adarbiko *iz* bi adar dituen aberea.

Artean **adarbikoaren** adarra eta Hego Afrikako zuhaitz-sugearen azala behar zituzten, eta haiek Snaperen biltegi pribatuetan bakarrik eskura zitezkeen. Iñaki Mendiguren

Ooo, begira, **adarbikoaren** adar-hautsa. Iñaki Mendiguren

---

adarbikoitz *izond* bi adar dituena.

Afari haren perspektibaren aurrean erreakzio **adarbikoitz** bat somatzen zuen neure baitan: ez zen gertakari neutroa, erakarri eta atzera botatzen ninduen aldi berean, iman bat ipar orratz bati hurbildurik bezala. Juan Garzia

Aurelianok, berriz, arrunkerian ahalegintsu, Ixion-ekin parekatu zituen, Prometeoren gibelarekin, Sisiforekin, bi eguzki ikusi zituen Tebasko errege harekin, hiztoteltasunarekin, loroekin, ispiluekin, oihartzunekin, noriako mandoekin, silogismo **adarbikoitzekin**. Juan Garzia

---

adardun **1** *izond/iz* adarrak dituena.

Ondoren, aulki **adardun** bat hartu zuen eta Joanesen aurrean eseri zen-. Felipe Juaristi

Gauzak nahiko absurdoak ziren berez, arkanbeleak esate baterako, eta kakalardo **adardun** haietako bat hartu zuen eskuan eta erabat zentzurik gabekoa iruditu zitzaion.

Joseba Sarrionandia

Pixkanaka, bere buru **adarduna** makurtu zuen. Iñaki Mendiguren

Eta jakin ezak, bitartean, ezen protestantei buruz erraiten diren gauzak -deabruak bezalakoak direla eta, halatan, **adardun** eta isatsdun-, funsgabeak direla eta gezur handiak. Joan Mari Irigoien

Ahots dardaratiko antxume ahulek ere ezagutzen dituzte euren ama **adardunak**, berdin bildots jostariek ardi beekariak. Xabier Amuriza

Esan liteken, Heidiren Alpeetako aitona bezala, **adardunen** bizkarretik bizi naizela. Migel Angel Mintegi

2 irud/hed

Neurri batean, zehatza izateko, **adardun** eta iruzurgileei esker bizi naiz. Migel Angel Mintegi

Badakizu zer zioen zuzenbide zibileko irakasle zoro batek, adarrez eta **adardunez** ari zela? Bada, hasieran min ematen dutela, baina gero bizitzen laguntzen dizutela. Karlos Zabala

Ziur nago zortzi senarretatik sei **adardun** direla. Josu Zabaleta

Jakina baita erreka batek edo ibai batek bitan zatituriko herrian eskuin bazterrekoek esanen dutela beste aldekoak **adardun** ankerrak direla, eta ezker bazterreko emazteek berriz beste aldekoek deabrua daukatela gonapean gordea. Berria - Kultura

3 ***adardun esku*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

1970eko hamarkadaren amaieratik aurrera, bera izan zen **adardun eskuaren** erabilera heavy metalaren ikur bezala ezagutarazi zuena. ETC-entziklopedia

4 ***hegatxabal adardun*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Hortaz, ukitzen dituen bizidun oro pozoitzen dute: familia batek maite duen katua, nekazariaren ganadua, soroan dagoen untxia eta zeruan dabilen **hegatxabal adarduna**. ETC-literatura, saiakera

Txori ugari egon ohi zen zeruan: hegatxabal arruntak, **hegatxabal adardunak**, eta baita izena jakin ez arren ezagunak zitzaizkidan hainbat txori ere. ETC-literatura, saiakera

5 ***kakalardo adardun***

Igande gaua zen eta ustekabeko intsektuak topatu genituen gero Santutxuko kaleetan gora gindoazela, **kakalardo adardun** handi batzuk. Joseba Sarrionandia

---

adarga *iz* larruzko ezkutu obalatua.

Mantxa aldeko herri koxkor batean, bere izenik ez nuke gogoratu nahi, bizi zen denbora asko ez dela kapare bat: lantza altxa-tokian, **adarga** zahar, zaldi ihar eta erbi-zakur duen horietakoa. Patxi Ezkiaga

Igo zen Rozinanteren gainera, doi-doian osaturiko zelata kaskoan, **adarga** besoan, eta lantza harturik, istegi bateko saihets-atetik kanpora irten zen. Patxi Ezkiaga

Bi maindire **adarga** -larruz eginak. Patxi Ezkiaga

---

adargabe *izond* adarrik ez duena.

Txakur zaindari horzgabeak; zekor **adargabeak**; lanerako zaldi zikiratuak, beren irrintziak gizaki arduratsuen hizkuntzara itzuli ezin zirela. Anton Garikano

---

adarje ik **adaje**.

---

adarjole ik **adarjotzaile**.

---

adarjotzaile *(orobat **adarjole**) iz/izond adkor* iseka egiten duena, isekaria.

Mundu osoko hainbat artista, ekintzaile, idazle, **adarjotzaile**, ikasle, hezitzaile eta enpresarik hartzen dute parte fundazio honetan. Txema Ramirez de la Piscina

Eskuzabala naiz, amultsua naiz, leiala naiz, baina **adarjotzaile** berezkoa ere bai. Oskar Arana

Erotuta dago, ala **adarjotzaile** gaiztoren bat ote? Josu Zabaleta

Gasteizko **adarjotzaile** talde batek *La Zeta de Gasteiz (una invitación a la revuelta)* izeneko aldizkaria plazaratu zuen. Bertan ikusgai daude web gune horren sustatzaileek sortu dituzten hainbat poster bitxi eta **adarjotzaile**. Txema Ramirez de la Piscina

Helburu hori lortzeko erabili zituzten tresnak benetan izugarriak ziren: irudimen **adarjotzailea** eta matxinada ludikoa. Txema Ramirez de la Piscina

-Egun on, mediku jauna -esan zion, **adarjotzaile**. Martin Anso

---

adarjotze *iz adkor* adarra jotzea, iseka egitea.

A zer **adarjotzea** orduantxe, bere burua zinezko demokratatzat zeukan iraultzaile zintzo harentzako. Patziku Perurena

Hamaika **adarjotze** egina, Arrasate alde hartan ikasle ginela, napar kaxkarron bizkarretik. Patziku Perurena

Zalantzatan nengoen ea ez ote zitzaidan txuliatzen ari Parent doktorearekin batera, ez ote zen aurrez prestatu eta ederki burututako **adarjotze** bat hura guztia. Josu Zabaleta

PPko eledun Leopoldo Barredak, berriz, Estatutu Proposamenaren tramitazioaren birmoldatzea **"adarjotze** hutsa" dela salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Nik bai ez dakidala, bere hitzei eman dien tonuagatik, gaizki zuzendu duenarekiko aitzakia arroxinaz ala **adarjotze** jostarinaz ari zaidan. Pako Aristi

Zorotzakoak, berriz, duintasun handiz zeraman jendearen **adarjotzea**, bai baitzekien denborak arrazoia emango ziola. Joxerra Garzia

Adarjotzearen makurra eta amesgaiztoaren mikatza! Harkaitz Cano

Adarjotzetik hurbil dagoen film luze eta aspergarria. Berria - Kultura

Kosmogoniarik sendoena edo hausnarketarik serioena dirudiena noiznahi bilaka dakiguke boutade edo **adarjotze** susmo. Juan Garzia

Zenbat aldiz ez ote zituen Feynman hark militarren txosten *top secret*-ak segurtasun-kutxa batetik beste batera aldatu, edo bere **adarjotze**-mezuak kutxetan bertan utzi, non eta Manhattan Proiektuan bertan, munduko lekurik seguruenean! Fernando Morillo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adarjotze bat** (4); **adarjotze hutsa** (3)

---

adarka **1** *adlag* abereez mintzatuz, adarrez joka.

Aldamenean zegoen behi bat **adarka** hasi zitzaion eta ez zuen bakean utzi haurra askatu arte. Gotzon Garate

Ezin zuen eta ez zuen geratu nahi, zeren geratzen zenean **adarka** ekiten baitzion antilope txikiak. Anton Garikano

Aharia mendebalderantz, iparralderantz eta hegoalderantz **adarka** ari zela ikusi nuen. Elizen arteko biblia

Ardi gaixoak beso-bizkarrez bultzaka eta **adarka** bazkatokitik kanpora bota dituzuelako. Elizen arteko biblia

2 irud/hed adarren arabera.

Bilkari etiketadunak kutxatilategitan sailkatuta zeuden, horma-armairuen barruan, jakintza-**adarka** sailkatuta: literatura, filosofia, zientzia eta teknika. Jon Muñoz

3 ***adarka egin*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Batzuetan, zezena bezala sentitzen naiz, zezendegiko iluntasunetik argitasunera irteten, hutsean **adarka eginez**, kopeta eta muturra harean igurtziz, oztopoei aurre egin eta halabeharra borrokatzen hasteko. ETC-literatura, saiakera

Kalerna adarka iten du 'galerna **adarka egiten** du'. ETC-zientzia, zuzenbidea

"Islero" izeneko zezenak harrapatu eta hil zuen Linares (Jaén) Linareseko zezen plazan, ezpata sartzeko unean **adarka egin** baitzion. ETC-entziklopedia

---

adarkada

1 *iz* abere batek adarrez jotako kolpea.

Bi lagun hil egin ziren **adarkaden** ondorioz, eta beste hamabost pertsona zauritu ziren. Berria - Euskal Herria

Hamahiru puntada eman behar izan zizkioten **adarkada** ixteko. Berria - Euskal Herria

Haatik, ahariak bekokian **adarkada** jota ere ez nengokeen hain mindurik. Edorta Jimenez

Ehun zezenez goiti toreatu eta lau **adarkada** larri izan zituela. Joan Mari Irigoien

Abuztuak 24 dituelarik Bilbon zezenak Ordoñez bere kutunari **adarkada** ederra sartu dio. Edorta Jimenez

Bi zezenketariak -Curro Banderas eta Paco Corrales- izan ezik, biak ere digestioarena baino **adarkada** gogorragoetarat eginak eta usatuak. Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

Begiak itxita, **adarkada** batez, barruraino sartu nuen [zakila]. Aitor Arana

Eskuak nire ipurmasailetan jarri zituen, nik **adarkadak** ematean bultza eginez laguntzeko asmoz edo. Aitor Arana

---

adarkadura

iz enbor nagusitik ateratzen den adarra. • *irud/hed*

Aurkitu behar da zer leku berezi betetzen duen, zer **adarkadurak** baimentzen duen eraketa-sisteman bere kokapena zehaztea, nola bakartzen den enuntziatuen sakabanatze orokorrean. Azkenik, guri gogor eta trinko iruditzen zaizkigunek euren artean gakotuago egon behar dute, **adarkadura** sarriz elkarlotzen direla. Xabier Arregi

Beste hitz batzuetan, eraketa-arauen **adarkadura** arkeologikoa ez da aldi berekoa modu uniformean: badira denboran neutroak diren harremanak, adarrak, deribazioak; badira beste batzuk denborazko norabide mugatua inplikatzen dutenak. Xabier Arregi

---

adarkako

izlag adarren araberakoa.

Bi urtetik urte batera apaldu ahal izanen litzateke, **adarkako** akordioen arabera. Berria - Ekonomia

---

adarkari

izond adarkatzen duena.

Baina idia **adarkaria** zela jakin eta jabeak zaindu ez badu, hildako idiaren jabeari idi bizia emango dio hildakoaren ordain, berak hildakoa hartuz. Elizen arteko biblia

· *irud/hed* Bai, emaile trebea bihurtu nintzen bi urte haietan: **adarkari** bizia, bugre zaildua, sodomatar peto-petoa. Aitor Arana

---

adarkatu

, adarka(tu), adarkatzen **1** du *ad* adar kolpez jo.

Salamancako (Espainia) Los Majadales ganadutegiko zezenek sei lagun **adarkatu** zituzten, eta horietako bi hil. Berria - Euskal Herria

Idi batek gizaseme nahiz emakumeren bat **adarkatzen** badu eta hiltzen, harrika hilko dute eta haren okelarik ez dute jango. Elizen arteko biblia

Eta zezenak panpinak **adarkatu**, eta hauek zutik erortzen ziren beti ere, zangoen gainean. Joan Mari Irigoien

Lege berak balio du **adarkatua** neskatxa nahiz mutikoa bada ere. Elizen arteko biblia

Adarkatua esklaboa bada, harrika hilko dute idia, eta esklaboaren jabeari zilarrezko hogeita hamar txanpon ordainduko dizkiote. Elizen arteko biblia

Idazten duelarik, Leiris-ek toreatzailearen ezagupenaren antzekoa sentitu behar du, badakiela **adarkatua** izan daitekeela. Joseba Zulaika

2 irud/hed

Jendeak irri egiten zuen eta irri egiten zien... jakin gabe ezen, halatan, beren buruei egiten zietela irri, zeren eta, zer gara, bada, panpina haiek baino gehiago, bizitzak **adarkatzen** gaituenean? Joan Mari Irigoien

3 adarretan bereizi.

Bentrikulua uzkurtzen denean, odola ez da atzera aurikulara itzultzen, norabide bakarreko balbula gisa funtzionatzen baitu belarriak; horren ordez, bihotzetik kanpora irteten da, aortatik, hau da, odola gorputzaren gainerako ataletara eramateko **adarkatzen** den arteria handitik. Irene Aldasoro

Zeren, haur-izaera tolesgabe eta amultsua izanik, bere iritzi eta ideiak eta besteenak zuhaitz handi hostotsuen moduan hozitu eta **adarkatzen** ziren, eta, gordetzen eta estaltzen zioten, begiratuan, bere arimaren beraren ispilu argia. Fernando Rey

Euskal sozialisten buruzagiaren ustez, elkarrizketa horiek ez dira paraleloan doazen bi ibilbide, "bitan **adarkatzen** den bidea baizik". Berria - Euskal Herria

Erakustea guztiz ezberdinak diren kontzeptuek (balioarena eta ezaugarri espezifikoarena, edo salneurriarena eta ezaugarri orokorrarena, esaterako) leku analogoa betetzen dutela euren positibotasun-sistemaren **adarkatzean**. Xabier Arregi

Formatu diren kateak linealak, **adarkatuak** edo elkarren artean lotutakoak ote diren. Berria - Gaiak

---

adarkatze

iz adarretan bereiztea.

Errekari gorantz jarraiki behar zaio, eta **adarkatze** bakoitzean xerkatu ea harri ona eskuin ala ezker segitzen duen. Juan Garzia

Sei tomo ikusi zituen ilaran jarririk, idazpuru honekin: Gogamenaren teoriarako prestakuntza-sarrera, haren orokortasuna, osotasuna eta mamia kontuan izanik eta gizarte-produktibitatearen **adarkatze** bikoitzaren jatorri organikoen ulerkuntzara aplikaturik. Jose Morales

Zabalbidezko **adarkatzeez** landa, zeinek, diogunez, sukaldea, ezkaratza eta are bainugela hartzen baitzituzten, ganbera bakar batez eta balkoiaz osaturik zegoen. Juan Garzia

---

adarki

iz animalien adarrak eginik dauden gaia. ik **adar 5**.

Gizon garaia eta liraina zen Franco, eta erabiltzen zituen betaurreko handiek -**adarkizko** euskarria zuten- begiak handitzen zizkioten. Xabier Olarra

Arku Luzeko Gerrariak; **Adarkizko** Koilare Handiaren Zaindariak; Astakirtenen Banda; [...]. Xabier Olarra

Lanpara txiki portzelanazko pantaila zuriko bat zegoen mahai gainean, eta **adarki** izurtuzko marko batean sarturik zegoen argazki baten gainera isurtzen zuen argia. Irene Aldasoro

adarkizko *izlag* adar hezurrez egindakoa.

Gizon garaia eta liraina zen Franco, eta erabiltzen zituen betaurreko handiek -**adarkizko** euskarria zuten- begiak handitzen zizkioten. Xabier Olarra

---

adarluze **1** *izond* adar luzeak dituena.

Plazaratu dituzten zezenak zezen **adarluze**, suhar eta nobleak dira; lehenengoa izan ezik. Edorta Jimenez

2 ***alpetar kakalardo adarluze*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Alpetar kakalardo adarluze ("Rosalia alpina"). ETC-entziklopedia

---

adarmotz *izond* adar motzak dituena.

Iruditzen zait idi kasta **adarmotzari** horrengatik ez zaizkiola hazten adarrak Szitian; eta nire iritziaren lekuko da Odysean dagoen Homeroren bertso hau: [...]. Patziku Perurena

---

adarño **1** *iz adkor* adartxoa.

Urkiaren **adarñoak** nekez gogortzen eta tentetzen dira, zumel irauten dute: sahatsarekin eta basa-lizarrarekin batera, jainkoentzako zeremonietan estimatuak izaten ziren adar-abarrok. Pello Zabala

Altzaren **adarño** berriaren makilatxoarekin txilibituak egitean, Branen burua zebilen kantuan, Bran altzaren arima txistuka. Pello Zabala

Lizar-makila zarbatan lekak zutik eusteko, eta **adarño** -abarrok beren ostroekin, ganaduentzat ondu. Pello Zabala

Sahats **adarño** edo makila bat lur umel samarrean sartzea nahikoa, zuztarrak agudo bota eta itsasteko. Pello Zabala

2 irud/hed

Auzi horren karietarat, jakinen ote da halere egia? Gisa guziz, beste auzi batzu egundainokotan jitekoak dira ondotik, aldi huntan ez baita saltsa guziaren **adarño** bat baizik aztertzen. Herria

Esaerak esaera, nahiz eta bakoitzak Kandelario sasoiaren inguruan **adarño** bitxiren bat ipintzen duen -Iparraldeko beste honek bezala: Kanderailu, sasoinaren berrigailu! Pello Zabala

---

adaro ik **aldaro**.

---

adarpe *iz* adarren azpiko gunea.

Errepidearen bihurgune batean bazen zubitxo bat, **adarpe** lehorrean garbitoki bat zuena; sarritan gelditu ohi ziren han, gaueko ilunean, elkarri musuka aritzeko. Josu Zabaleta

Lizarrondoan, eta bere **adarpe** oparoak hartzen duen itzalean ez duzu topatuko sugerik. han ez da belazerik ez urkirik // abuztuko gerizpe ezkoa hartzeko // ezta haritzik ere burua enborrean pausaturik // **adarpean** etzanda erdi zaitezen. Pello Zabala

---

adarrarte *iz* adarren azpiko gunea.

Hala ere, hango **adarrarte** sarriari esker, esku biak adar lodi bati eutsita baino ez zen geratu, gainerakoa zintzilik, udazkenaren zain dagoen hosto bat bezala. Felipe Juaristi

Udareondo baten **adarrartean** ageri zen oraintxe, baratzeraino iritsiak baitziren. Anton Garikano

---

adarrasto *izond adkor* **

-Hemen naukak, txerri **adarrasto** horrek. Patxi Iturritegi

---

adarrondo *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* **1** *iz* adabegia.

Ez ote datoz senar zaharren baratzean jaiotzen den **adarrondotik**? ETC-literatura, saiakera

2 ***zer adar eta zer adarrondo***

-Zer adar eta zer **adarrondo**, Justino. ETC-literatura, saiakera

-Zer adar eta zer **adarrondo** -sartu da Garxot-, ez duk izan-eta inoiz hire emaztea. ETC-literatura, saiakera

---

adartsu *izond* adar asko dituena.

Izotz-zerrenda mehe bat, erreka baten estalki seguru asko, igaro zuten eta urki baten ondoan, urki handi eta **adartsu** baten ondoan. Felipe Juaristi

Hanka motzak eta beso lodiak zituen, gorputz **adartsua** eta mozkote samarra, eta gerrian lotutako belar sorta zuen jantzi bakarra. Agustin Otsoa

Halako batean, umetxoak hesi **adartsu** bat topatu zuen aurrean eta orduan gelditu eta, lurjota, bueltatu egin zen eskuak babes moduan jarriz, hitz bat bera ere esateko arnasarik ez zuela. Koldo Biguri

Han goiko truke horretan txispa eta su hasten da energia pilatua: bat-bateko deskargak argitasuna sortzen du hodei barnean, su-mingain **adartsuen** gisara. Pello Zabala

Gurasoei galdetu, amona Erikarekin jardun, eta udaletxeko artxibategian arakatu, nire zuhaitz genealogikoa gero eta **adartsuagoa** zen. Anjel Lertxundi

Uste baino **adartsuagoa** izan zen erditzea, eta han aritu ziren Bereziartua bera eta baserriko gehienak, tira handik eta tira hemendik, txahala mundura ekarri nahirik. Joxerra Garzia

---

adartu, adar(tu), adartzen da *ad* adarretan bereizi.

Erruki Etxea ez zegoen elizatik urruti, zinema aretoaren aurrean, galeria ondoan estrata zabaldu eta **adartzen** zen tokian bertan. Josu Zabaleta

---

adartxo *iz* adar txikia.

Mikak, **adartxo** batzuk hartu eta habia-barrena sendotu zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sasien artetik joan ginen herrestan, ra-ta-ta, txistu seinale bat egin eta belar luzeen artean ezkutatu ginen, eta hantxe geratu ginen kuzkurtuta, erne, **adartxo** bat noiz hautsiko, edo noiz zabalduko sasidi ezkutua. Koro Navarro

Noizean behin, lan beti-berdinak asperturik haurrak letrei buztantxo edo **adartxoren** bat eransten zienean, "Berriz ere zozokerietan!" esaldia, ahots ezagun baina latz batek esana. Jose Morales

Hala hasi ziren bilera haietan batzuk arbastekin estalpeak egiten, beste batzuk mendi azpian kobazuloak irekitzen, bakarren batzuk, enaren habiak eta beren eraikuntzako metodoak imitatuz, lohiarekin eta **adartxoekin** babesteko aterpeak egiten. Santiago Iruretagoiena

Zerk du aparraren antza handiago, kimu izateari utzi gabe -begi batetik jaiotzen ari den **adartxoari** uko egin gabe-, **adartxo** izateko irrika erotikoa bizi duen larru-zirrarak baino? Anjel Lertxundi

Ereinotz **adartxoak** erortzen zitzaizkigun aldian behin magalera, lore xortak, marrubizko lepokoak, belar ziri batean sartutako perla arrosak. Bernardo Atxaga

Alchonon maisu-laguntzailea errezo xal batean eta abituan bildu zuten, buztin puskak jarri zizkioten begietan, eta mirto **adartxo** bat estutu zioten hatzen artean, Mesias etortzean Lur Santurainoko bidea zulatzen lagunduko ziona. Koro Navarro

Mahatsondo-ahienak edo pinu-**adartxoak** erreko dira; sugar egiten direnean itzal bitez, eta ondoren, kola nahastuz, mortairuan eho bitez. Santiago Iruretagoiena

Muturretik zerion kea **adartxo** urdin batean kiribiltzen zen, arnasak albo batera higiarazirik, eta errautsa beltz metatzen zen. Jose Morales

Arratsean etorri zitzaion, olibondo **adartxo** moztu berria mokoan zekarrela.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
adartxo bat (3); **olibondo adartxo** (4)

---

adartzabal *izond* adar zabalak dituena.

Ezaguera dudanetik, berriz, gogoan dut mutikozkorretan nola ibiltzen ginen jostaka, Karretoko soroan bertan izaten genuen lizar handi **adartzabal** haren itzalean. Patziku Perurena

---

adartzar *iz adkor* adar handia.

Bero eta hotz, hotz umel eta bero, han ez da giro! Deskarga saltoak hasten dira kilometrotako hodei **adartzar** horien sakanetan: positibo-negatiboen borroka trumiltsua. Pello Zabala

---

adarzabal *iz* oreinaren familiako ugaztun handia *(Dama dama)*.

-Adarzabalak baino bizkorrago ihes egin zutela ziotek, ba -Jesus Galindezek Gorbeia inguruetako **adarzabalak** ote ditu gogoan, ala? Edorta Jimenez

---

adasdun *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) izond* ile luzeko pertsona.

Samson **adasdunak** bere indarra ilean zeukan eta Dalila andre traidoreak adatsa moztu zionean, indarra kendu zion, et adatsaren lekuan beste gizon batekin adarrak senarrari jarri. ETC-literatura, saiakera

Bien begiradak nabaritu zituen aurpegian, soinean; urrezko **adasdunarenak** inguratu egin zuen, hartu egin zuen. ETC-literatura, saiakera

---

adaska ik **adaxka**.

---

adats 1 *iz* buruko ileen multzoa, eskukarki luzea denean.

Isurketaren unera heltzeko ezer gutxi falta nuenean, neskak bere **adatsa** askatu, eta ni ile irrikatu haien eromenean urtu nintzen. Patxi Zubizarreta

Atsegin nituen bere keinuak, batik bat **adatsa** laztantzeko eta lepokoarekin jostatzeko egiten zituenak. Patxi Zubizarreta

Poeta zaharrek ere askotan kantatu dute neskatxaren **adatsetan** trabaturik gelditu den gizonaren bihotza. Patziku Perurena

Aho bat, betile luzedun begi beltzak, **adatsak**, bular biribil bat, gure baratzeko mingrana bat bezala puztua. Juan Kruz Igerabide

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Adatsa horixka eta luze mardula, bizkar-gaina ezik gorputz-bira guztia ere estaltzen ziona. Patxi Ezkiaga

Begietan dantzan nuen Helgaren **adats** gorria, ihia haizearen mende legez, eder eta airos. Edorta Jimenez

Haren **adats** askatua, oso luze, oso beltza, besaulkiaren bizkarraren gainetik zintzilik lurra ukitzeraino iristen zela iruditzen zitzaidan. Josu Zabaleta

Eskuak aurrena emakumearen sexura eraman zituen Brunok, hurrena haren gerri eta bularraldera, eta, azkena, haren **adats** bustira. Patxi Zubizarreta

Logelan oraindik nabarmenak ziren Ellenen **adats** sarriaren zedro-usaina eta bere soinaren leuntasuna. ispiluari eutsi eta bere begitarteari so egin zion, bekokiko bere ile-xerloei eta bere **adats** leun ilun nahaspilatuari erreparatuta. Lopez de Arana

Jaiki berria zen, eta bere ilea, jadanik gaueko harrotasunik gabea eta distiratsua bernizatu izan balu bezala, **adats** leun txikietan jaisten zitzaion lokietatik behera. Karlos Zabala

Apolo hori-gorriak bere urrezko **adatsaren** ile zoragarriak lur zabalaren zabaldietan isuri zituen. Patxi Ezkiaga

Egunsentia argitzen hasia zen eta ari zen ari Febo dirdiratsua bere distira beroen beroz **adats** urrezkoen ttantta bitxiak lehortzen. Patxi Ezkiaga

Adats txuri-horixkak ezker eskuarekin atzeraka leunki bultzatu ostean, leihora hurbiltzeko keinua egin zidan. Aritz Gorrotxategi

Gaztaina-koloreko **adatsa** zuen, gorabeherarik gabeko izur faltsuetan bildua. Juan Kruz Igerabide

· Hester Voorhees izeneko emakume argalak **adats** sarri hennaz tindatua zuen, belarrien parean moztua. Lopez de Arana

Ontzi bakoitzeko sei akaiar **adats** -eder hil ziren. Juan Kruz Igerabide

Akaiar **adats** -luzeok -esan zien-: ez dut nire aita eta zuen errege denaren berririk, ezta harekin joan ziren gizonenik ere. Juan Kruz Igerabide

Orduan, Ateneak are itxura ederragoa eman zion, burutik behera **adats** hiazintoa bezain ederrak zintzilik zituela. Juan Kruz Igerabide

Belus urdineko begizta bat **adats** ondo-ondo orraztuan. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neskatoaren **adats** -izpiak eskutan hartu zituen leunki, eta lasaitzen saiatu zen, lehenaldian egindako gaiztakeriak eta hobenak bere buruari aitortzen saiatuz. Ibon Uribarri

Ariannarena egiten zuenak -Adriana Gentile, Mantuako emakume **adats** -gorri batek-, onartu. Felipe Juaristi

-Akaiar **adats** -luzeok -esan zien-: ez dut nire aita eta zuen errege denaren berririk, ezta harekin joan ziren gizonenik ere. Juan Kruz Igerabide

Zure **adats** -kizkurrak ahuntz-taldea dirudi. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Andereñoa, ze ederra den! Ze bele-**adats** harroa daukan! Pablo Sastre

5 *adats izpi*

Neskatoaren **adats-izpiak** eskutan hartu zituen leunki, eta lasaitzen saiatu zen, lehenaldian egindako gaiztakeriak eta hobenak bere buruari aitortzen saiatuz. Ibon Uribarri

6 *aingeru-adats* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* kuia zatiak azukrean egosiz egiten den janaria.

Lorezainen azokak ikusi ditut, arrosak eta jasminak girlandatzen dituztenak urreizun eta **aingeru-adatsarekin**. ETC-literatura, saiakera

Aingeru-adatsa edo zirikilotea, zirikilote izeneko kuia-barietatearekin eta azukrearekin egiten den gozoa da, pastelgintzako betegarri gisa erabiltzen dena. ETC-entziklopedia

7 *ile adats* ik **ile 9**.

Ile-adatsa emakumeena bezalakoa, eta hortzak lehoiarenak bezalakoak. Elizen arteko biblia

Ile-adatsa laztandu nion, eskuin eskuaz. Joxe Austin Arrieta

Erantzi zuen, bada, mutil gazteak bere burukoa, eta buruari alde batera eta bestera eragin zionean, orduan hasi ziren **ile-adatsak** beherantz zabaltzen. Patxi Ezkiaga

Ohe-sofan etzan zen eta bere esku meheaz zanpatu zuen **ile-adats** marroi hitsa. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adats bat (4); **adats beltz** (5); **adats beltza** (4); **adats eta** (3); **adats hori** (5); **adats hura** (3); **adats leuna** (3); **adats luze** (9); **adats luze eta** (4); **adats luzea** (3); **adats solteak** (3); **adats zuriak** (3); **adatsa ferekatzen** (3); **akaiar adats** (5); **bere adats** (10); **bere adatsa** (4); **buruko adatsa** (4); **eta adats** (6); **eta bere adats** (3); **haren adats** (6); **ile adats** (23); **ile adatsa** (21); **ile adatsak** (6); **ile adatsaren** (4); **koloreko adatsa** (3)

---

adausi *(orobat **ahausi**)* **1** *iz* zaunka.

behin haserretzen bazen, haren kolerak ez zuen ematzeko husgunerik, ez baretzeko atseden-lekurik edireiten: aitzitik, handitu eta areagotu egiten zitzaion, harik eta mihian eta odolean lehertzen zitzaion arte, or errabiatu bat iduri, **adausia** eta ausikia baterat zituena. Joan Mari Irigoien

Basapizti ez-nolanahikoak izan behar zuten zakurrok, beraien **ahausien** lakarra aintzakotzat hartuz gero behintzat. Joxe Austin Arrieta

Adausi bizian ari ziren Kriskitin eta Kraskitin. Xabier Montoia

Azkenean, ordea, etxe berrian giro ona ikusi eta konfiantza hartu zuenean, **adausi** egiten hasi zen. Gotzon Garate

2 *adausi egin*

Azkenean, ordea, etxe berrian giro ona ikusi eta konfiantza hartu zuenean, **adausi egiten** hasi zen. Gotzon Garate

---

adausika *(orobat **ahausika**)* *adlag zaunkaka.*

Zakurrek beren pozak eta atsekabeak, maitasuna eta gorrotoa **adausika** adierazten dituzte. Gotzon Garate

Hans ttikia gosearen gosez negarrez hipaka hasi zenean, dobermana **adausika** hasi zen eta gidariak "Ixo! Patxi Zubizarreta

Berrehun eta berrogeita sei mila ezkatako suge honen gainean orroka ostikoka **adausika** zanpatu ezkilak atertu ezineko bozkarioan zirela. Koldo Izagirre

Hans ttikia gosearen gosez negarrez hipaka hasi zenean, dobermana **adausika** hasi zen eta gidariak "Ixo! Patxi Zubizarreta

Nireaz gain, trena urduritasuna barreiatuz joan da trenbidean zehar: zakurrak **ahausika** hasi dira, artaldeak iheska. Patxi Zubizarreta

---

adaxka *(orobat **adaska**)* *iz* adar edo abar txikia.

Kimu bat aterako da Jeseren zuhaitz-ondotik, **adaxka** bat erneko haren sustraietatik. Elizen arteko biblia

Zumarraren **adaxka** eta hostoen artetik zeruaren urdin zurbila eta hodei zuriren baten ibili lasaia ikusten nituen. Fernando Rey

Leihotik, zuhaitz baten **adaxka** ageri da. Aritz Gorrotxategi

Airea falta izan zitzaidan, urtegiaren barruan banengo bezala; hondoko lokatz eta zainen artean trabatuta, nire gainean hostoak eta **adaxkak** ikusiz, eta baita hildako tximeleta gorria ere. Bernardo Atxaga

Isatseko **adaxkak** mozteko zilarrezko guraize bereziak. Iñaki Mendiguren

Arboladi osoa hildakoz betea, baita **adaxketan** jarrita zeudenak ere, horiek ere hilak zeuden, lo zeuden bitartean hotzak hormatuak. Fernando Rey

Arbolaren enborra jo eta adarretatik eta **adaxketatik** izotz hormatua eta txori hilak erori ziren. Fernando Rey

Zehatz-mehatz aztertu zuen kirtenaren muturretik isatseko **adaxketaraino** -. Iñaki Mendiguren

Urtaroei erreparatzeko sentiberatasun gutxitxo izaten dudan arren, nahi gabe ere ikusiko nituen elur-pindarrak negu partean, **adaxka** gorrituak udazkenean, bazterrak berdatzen udaberriak aurrera egin ahala. Xabier Mendiguren Elizegi

-Draco Malfoy morroi horrek -esan zuen Erniek, **adaxka** iharrak hautsiz- oso pozik ematen du gertatzen ari den guztiaz, ezta? Iñaki Mendiguren

Haizeak putz eta txistu egiten zuen arbolen **adaxka** biluzietan eta sasietan. Fernando Rey

Beste hainbat langintza ere ugaldu ziren, legearen alde "onean" egon beharrean legearen albo batera zeudenak, **adaxka** nagusi eta zuzenaren ondoan hazi ohi diren **adaxka** bihurri eta okerren antzera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Leun eta distiratsua, kaobazko kirtenaz, **adaxka** txukun eta zuzenak zituen eta muturretik gertu Nimbus 2000 zeukan urrez idatzita. Iñaki Mendiguren

Ez zeukan **adaxka** okerturik mozteko, eta kirtena hain distiratsua zeukanez, alferrikakoa zirudien hura igurztea distiratsuago uzteko. Iñaki Mendiguren

Bere oinetan zuen poltsara luzatu zuen eskua, hura hustu eta dozena bat ezpal eta **adaxka**-puska erori ziren ohe gainera. Iñaki Mendiguren

Atean elorri **adaxka** batzuk paratu, su handia piztu bezperan eta biharamunean, eta [...]. Patziku Perurena

Santa Anarekiko jaiera, atetako elorri **adaxkak**, su eta ur inguruko dantzak. Patziku Perurena

Haltz **adaxkan**, karnaba bat kantan. Iñaki Arranz

Isatsean banan-banan hautaturiko urki-**adaxkak** perfekzio aerodinamikoa bilatuz prestatu dira, horrela Sutximista honek oreka ezin hobea eta doitasun milimetrikoa dituelarik. Iñaki Mendiguren

Parnell hil eta gero, haren jarraitzaileek urriaren 6an (Parnell hil zen egunez) paparrean **huntz** adaxka bat jartzeko ohitura hartu zuten, beren buruzagiaren omenez. Irene Aldasoro

Beste muturrean, perrexil-**adaxkaz** estaliriko paper izurtuzko ohe batean, urdaiazpiko handi bat, azala kendurik eta ogi-apur txigortuz gaineztaturik. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta adaxkak (5)

---

adbekzio *iz* meteorologian, aire masa baten translazioa, eskuarki horizontala.

Erradiazioa goi-beheak uztartuz ematen den bezala, **adbekzioa** berriz, aldez alde, aldameneka ematen da. Pello Zabala

Teknikoki nola deitzen zaien arratseko lainobera hauei? **Adbekzio**-lainoak. Pello Zabala

---

adbentista *(corpusean ez dago; ETCn 54 agerraldi)* *izond/iz* Jesukristo Lurrean bigarren aldiz agertuko dela sinesten duen doktrina erlijiosoa; doktrina horri dagokiona.

Geroago irakurri dut biztanleriaren %12k, Interneteko protesta-mugimendu bati jarraituz, erantzun zuela ez zela ez protestantea, ez katolikoa, ez musulmana, ez **adbentista**, ez budista, ez hinduista, ez animista, ez mormoia; Jedi zalduna baizik, Star Warsen bezala. ETC-literatura, saiakera

Manueltxo Jimenez Zazpigarren Eguneko **Adbentista** hiperaktiboak argitu digu Castresanaren zakurrak zergatik desiratzen duen horrenbeste Gaizka San Justo. ETC-literatura, saiakera

Zimbaweko Bulawayon jaioa, 1898 inguruan, misiolari **adbentista** baten semea. ETC-literatura, saiakera

"Arrunt ongi oroitzen naiz hartaz" esan digu, bere aldetik, Abraham MacPherson artzain **adbentista** agurgarriak, berak zuzentzen baitzuen umezurztegia Olga Arellano Rosaura bertan izan zen urteetan. ETC-literatura, saiakera

Sekta (**adbentista**) bateko kide dela ere egotzi zioten, eta baita bere lanbiderako "ezgauza" dela ere. ETC-prentsa

Kechkounen dagoen Garapenerako Agentzia **Adbentistak** bultzatzen duen beste erietxe batean, bestalde, 145 gaixo daude kala-azar gaitzarekin. ETC-prentsa

Joan zen astean, apaiz **adbentista** bat aske geratu zen, hamar urteko kartzela zigorra bete ostean. ETC-prentsa

Nork du arrazoi? Bataiatzaileen jainkoak? Katolikoenak? Musulmanenak? **Adbentistenak** ? Nori sinetsi behar zaio? Ezin dute elkar hartu, ala? Baina zer-nolako jainkoa da ideiak aldatzen dituena! ETC-prentsa

Horietako batzuek osatu zuten gaur egun Zazpigarren Eguneko **Adbentistak** deitzen direnak. ETC-prentsa

Jehovaren lekukoak elkartea Charles Taze Russellek sortu zuen 1872an, hainbat taldetan - **adbentistak** barne- ibili eta gero. ETC-prentsa

Horien atzetik musulmanak, budistak, kristau ortodoxoak eta Zazpigarren eguneko eliza **adbentista** agertu ziren. ETC-entziklopedia

Eskatologia kristauaren euren irakurketaren ondorioz, Zazpigarren Eguneko Eliza **Adbentista** irasi zuten. ETC-entziklopedia

---

adberbial *(corpusean ez dago; ETCn 83 agerraldi)* **1** *izond*

Hemen superpotentzia **adberbial** bat da. ETC-prentsa

Adberbioak eta erabilera **adberbialeko** bestelako sintagmak (**adberbialak** edo adizlagunak). ETC-zientzia, zuzenbidea

Egile batzuek testu-deixiari buruz hitz egiten dute elementu **adberbial** batek testuaren une bat seinalatzen duen kasuetan, adibidez: gorago, aurrean, goiko atalean, hurrengo lerroetan, beherago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Guztira, zortzi kasu daude: nominatiboa, ergatiboa, datiboa, genitiboa, instrumentala, **adberbiala** , lokatiboa eta bokatiboa, izen, adjektibo eta izenordeekin erabiliak. ETC-entziklopedia

Sui generis latinetik datorren lokuzio **adberbial** bat da, "bere genero edo espeziearen berezkoa" esan nahi duena. ETC-entziklopedia

2 *perpaus adberbial* *(corpusean ez dago; ETCn 11 agerraldi)*

Moduzko **perpaus adberbial** jokatugabe baten gramatikalizazioz sortua da beste era batera esanda diskurtso-markatzailea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Denborazko perpausekin azaldu dugun erregela hori orokorrean ikusirik, **perpaus adberbial** guztietarako erabilgarria da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

adberbio **1** *iz* aditza, adjetiboa edo beste adberbio bat mugatzen duen hitza. ik**adizlagun**.

Adberbio gisa ere erabiltzen da hitza: erregela katolikoago bete dezagun (Test 34). Askoren artean

") **adberbio** batez ("perfektuki") edo izenordain batez (zuek!). Xabier Arregi

Jokabide berbera dute **adberbio** erakusleek ere: [...]. Koldo Zuazo

Litekeena baitzen, itxurak besterik erakusten bazuen ere, Lisboa emakumezkoa izatea, eta ez hiria, orduan galera maitasunezkoa liteke soilik, **adberbio** murriztailea sartzen ahal badugu hemen, eta egiazko galera zoriontsu bakarra horixe ez baldin bada. Jon Alonso

Jainkoak barka nazala; lasterbidezko telegrama baten hartzaile izatearen prestigioak, berriaren ezeztapen-formaren eta **adberbio** ezinago larriaren arteko kontraesana Fray Bentos osoari azaltzeko irrikak, gizon peto bati dagokion estoizismoaren itxurak eginez nire oinazea dramatizatzeko tentazioak, ez zioten apika lekurik batere utzi saminari. Juan Garzia

2 *adberbio erlatibo* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Kuasiestatiko hitza, latinezko "quam" **adberbio erlatiboaren** , "si" konjuntzioaren eta "statica" adjektiboaren loturatik dator, quasi (balitz bezala) statica (estatiko) hitz konposatua osatuz. ETC-entziklopedia

3 *denbora adberbio* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Zubi horietako bat aurtengo Durangon -onartu beharko da herri izena ez ezik **denbora adberbioa** dugula honezkero- egin zen, zenbait euskal herritarrek Espainiako Konstituzioaren kariaz nahitaez gozatu behar duten zubian hain zuzen. ETC-prentsa

Leku- eta **denbora-adberbioak** , erreferentziakidetasuna eta anafora. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *denborazko adberbio* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Aldia beste era batean ere zehatz daiteke, **denborazko adberbioa** gehituz, alegia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arestian esan dudan bezala, deiktikoen artean izenordainez gain lekuzko eta **denborazko adberbioak** ere baditugu: hemen, hor, han, orain, gero, atzo... ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *leku adberbio* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Zilegi ote da **leku adberbio** hauek "beldur naiz" belaunaldiko hiztegian sartzea? ETC-literatura, saiakera

Erakusleek herskari ahostuna dute hasieran: gau, gori gura: "Joanes Iriartek gau erran zako", "etxe gontan bizi zire"... **Leku adberbioak** ere: gen (hemen), gor, gan. ETC-entziklopedia

6 *lekuzko adberbio* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

11. adibidean ikus dezakegu han **lekuzko adberbioak** , esaldian lehenago agertzen den Biarritzera aipamenari egiten diola erreferentzia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lekuzko adberbio horiek deiktikoki funtzionatuko dute testuinguru fisikoan dagoen zerbait seinalatzeko erabiltzen direnean, baina adierazten duten leku hori kotestuan aurretik aipatu den elementuren baten bidez egin behar denean interpretazioa anaforikoa izango da. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *maila adberbio* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Adjektiboak ere, izenak bezala, bere inguratzaileak har ditzake. Ez izenak adina, baina batzuk bai: **maila-adberbioak** esaterako, edo mugatzailea (izen-predikatuetan). ETC-entziklopedia

8 *moduzko adberbio* *(corpusean ez dago; ETCn 6 agerraldi)*

Moduzko adberbio gisa erabiltzen da batik bat; haren bidez jakinarazten da informazio bat zehaztasun handiz adierazten dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

adbertsatibo *iz/izond* gramatikan, aurkakotasuna adierazten duena.

Baina, baina -azpimarratu nahi izan zuen juntagailu **adbertsatiboa** - potroak benetan moztuta baldin badauzkazu, erabakita eta legez adierazita utzi dudan nahiaren betekizunen barruan sartuko zara, orain emakumea zarenez gero, eta nire herentzia handia zuretzat izan daiteke, zure ahizpak hiltzeko gauza baldin bazara. Aitor Arana

Adbertsatiboa destestua da, atzerako bidea, baieztapenari, ordura arte ehundutako diskurtsoari egindako abordada. Iñigo Aranbarri

Edorta Jimenezen *Azken fusila* **adbertsatiboak** saihestuz idatzia da, baina ez, esan dudan bezala, jolasagatik, ideologiagatik baino. Iñigo Aranbarri

Baina, baina -azpimarratu nahi izan zuen juntagailu **adbertsatiboa**- potroak benetan moztuta baldin badauzkazu, erabakita eta legez adierazita utzi dudan nahiaren betekizunen barruan sartuko zara, orain emakumea zarenez gero, eta nire herentzia handia zuretzat izan daiteke, zure ahizpak hiltzeko gauza baldin bazara. Aitor Arana

---

addenda *iz* idazki baten bukaerako gehigarria.

Addenda: nire liburua gordetzen duen atala zabaldu dut ordenagailuan, eta Toshiroren bila hasi naiz. Bernardo Atxaga

---

addendum *iz* idazki baten bukaerako gehigarria. ik **addenda**.

Kontakizun labur honi **addendum** hau gehituko nioke: aukera izan dut bidaiari hori bera geroago begiz jotzeko, identifikatu ezin izan dudan pertsonaia batekin. Xabier Olarra

---

adeboiloan *adlag* guztiz presaka.

Joseba **adeboiloan** ari zen, guztiz Amona bere behi beltxa arbazta batekin **adeboiloan** hartuta joan zenean, amak argitu zidan misterioa: [...]. Iñaki Zabaleta

---

adei 1 *iz* norbaitenganako begirune edo onginahia; jendetasuna, adeitasuna.

Areago maite ditudala iruditzen zait, zuk haiek biltzeko **adeia** erakusten didazun heinean. Jon Muñoz

Hanbatenaz aniztu ditu nireganako **adeiak**, amoltsutasuna, begirunea, non ez baitezaket gehiago paira. Jon Muñoz

Pubeko nagusiak **adei**-legez zerbitzatu zuen, baina ez zen hizketan hastera ausartu. Irene Aldasoro

Orduan irudimenaren sintesi birproduktiboa gogamenaren ekintza transzendentalei dagokie, eta hauen **adeiez** ahalmen honi irudimenaren ahalmen transzendentala deitu nahi diogu. Ibon Uribarri

2 *adei-lege*

Pubeko nagusiak **adei-legez** zerbitzatu zuen, baina ez zen hizketan hastera ausartu. Irene Aldasoro

---

adeigabe *izond* adeitasunik gabea.

Entzuidak, apaiz **adeigabea**, aingeru zaindari izango duk ene arreba hi aienez hagokeenean uluka. Juan Garzia

-Anai Egidio, zergatik izan zara hain **adeigabea**? Askoren artean

Neronek bizpahiru minutu lehenago eginiko adierazpena **adeigabea** iruditu zitzaidan haren ezpainetan. Nolabait -ihardukitzaile eta **adeigabearen** plantak eginez- esango nuke pentsamendu bakarrari egiten zaizkion kritika askok ere pentsamendu bakarraren bertute eta gabezia antzekoak dituela. Ramon Saizarbitoria

---

adeitasun 1 *iz* norbaiti adierazten zaion begikotasuna, adibidez, bat etorri gabe ere haren iritziari kontra egiten ez zaionean, edo bat bederak duen eskubidea eskaintzen zaionean. ik **jendetasun**.

Nire **adeitasun** eta begirunea, zeruko egiazko bakea eta zinezko maitasuna Jaunarengan. Askoren artean

Ongi etorriari eder zaio **adeitasuna** eta zeremonia. Juan Garzia

Modu horretan sufritu nahi nuke, neurrian, neure buruarekiko **adeitasunik** eta errukirik gabe, araztasun idor batekin. Monika Etxebarria

Adeitasuna, gorrotoa itzaltzen eta maitasuna sustatzen duen karitatearen ahizpa da. Askoren artean

Ugalderen dotorezia, **adeitasuna** eta zintzotasuna, ez dira edonorengan aurkitzen. Hasier Etxeberria

Frantzisko santuak guztiei karitatea aholkatzen zienean, elkarri **adeitasuna** eta senidetasuna azaltzera gonbidatzen zituen. Askoren artean

Baina **adeitasuna** eta modu onak ahazten ari naiz! Agustin Otsoa

Katalinak oraindik ere hika egiten zion eta andre Agedak **adeitasuna** eta ongi-nahia erakusten zizkion, hamaika oharretan eta aholkutan adieraziak. Koro Navarro

Gaztearen **adeitasuna** eta jendetasuna etorri zitzaizkion gogora. Patxi Zubizarreta

Keinu harekin adostasuna eskatzen ari zitzaion, **adeitasuna** adierazi baino gehiago. Anjel Lertxundi

Zein xalo eta amultsuki hitz egin zion arreba deituaz, nolako **adeitasuna** agertu zion Volgan behera zihoazelarik. Karlos Zabala

Ez da, bada, harritzekoa eskolara bidean bizikletan denek lagundu nahi izatea edo **adeitasuna** erakutsi nahi izatea. Josu Zabaleta

Nire erreguen, nire arrazoien begiramenik gabe, zure etorrera aldez aurretik mezutzeko **adeitasuna** ere izan gabe, beldurrik gabe ezarri nauzu ustekabe baten arriskuaren mendean. Jon Muñoz

Beldur izan nintzen une batez bere manuak ez ote zituen atzera botako, eta haren **adeitasunak** ez ote zidan kalte eginen. Jon Muñoz

Ez, ene jauna, **adeitasun** hori ez da gizalege onekoa. Juan Garzia

Txitxikoven zakarkeria eta **adeitasunik** eza gorabehera, Koshkariovek izugarri adeitsu eta samur jokatu zuen.Baldin urratsak bederen geldiagoak egiten badituzte, ez da, usteak uste, **adeitasunagatik** edo herabetasunagatik izaten. Jose Morales

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Adeitasun handiz agurtu zituen denak eta beste gela batera sartu zituen. Josu Zabaleta

Adeitasun handiz jokatzen zuten denek, hala ofizialek, nola damek, nola frakez jantziriko gizonek; gogaikarri ere gertatzen ziren melengaren melengaz. Jose Morales

Apalak goregi geratzen zitzaizkionean, neska beltxaran polit bati eskatzen zizkion Ruche jaunak eskuratu ezin zituen liburuak, eta **adeitasun** amoltsuz eskuratzen zizkion neskak. Jon Muñoz

Adeitasun nabarmenaz egin nion begitarte, harekin nuen harreman gutxia hala frogaturik. Jon Muñoz

Zure erantzunaren zain, azaldu nahi dizut, jauna, behintzat, nire **adeitasunik** arretatsuena. Xabier Olarra

Haizu zitzaidala zurekin zuhur samar jokatzea, eta atxiki ahal nintzaiola, gehiegizko ahalkeriaren beldurrik izan gabe, soilik **adeitasunik** hotzenaren adierazpideei. Jon Muñoz

Militarista "zibilizatuen" **adeitasun** gogaikarriaren aurka. Iñaki Mendiguren

Adeitasun hutsezkoa zela ageri zuten interesa. Joxe Austin Arrieta

Adeitasun eta adiskidetasun gizabidetsuegia erakusten zuen bere maneretan. Jose Morales

Nire paperak lurretik jasotzera ausartua zen tipoa, inork zapal ez zitzan nonbait, eta eskura luzatu zizkidan, **adeitasun** ezin adeitsuagoz. Joxe Austin Arrieta

Ohizkanpoko **adeitasuna**. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lisa ederrak, aurretik finkaturiko **adeitasun** arauez harago, Normandiar ederra espaloiraino lagundu nahi izan zuen. Karlos Zabala

Erreginak nahi luke jokoari ekin aurretik **adeitasun**-erakutsi zerbait bazenegio Laertesi. Juan Garzia

Enperadorearen **adeitasun**-agerkari berezi bat zen guardia hungariarraren emazte frantsesarekin txantxetan aritzea. Xabier Olarra

Orduan, **adeitasun** eta alaitasun sentimendu bat zerion guztiari, kaleak goraino betetzen eta bakea betiereko balitz bezala arimak erabat asetzen zituena. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hala duk geratu -mundu txoroak noski kutun dituen beronen txitaldiko beste asko bezala- garaiko hitzots dotore eta tratu- **adeitasun** itxura huts-hutsean. Juan Garzia

5 ***adeitasunez***

Bernardinok, **adeitasunez**, zalgurdiko atea ireki zion Joanesi. Felipe Juaristi

Edalontzia eskaini zion begibakarrari eta hark, **adeitasunez**, goraino bete ardo zuriz. Felipe Juaristi

Muchek gauzak **adeitasunez** egin zituen; kukurutxoa aukeratzen utzi zion Paulineri, ez zion kendu, sosa ordaindu zuen. Karlos Zabala

Adeitasunez egin zion ongietorria obispoari, eta, ordurako eraztunik ez bazuen ere, muin egin zion eskuan. Inazio Mujika Iraola

Eskarmentuz zekien solaskidea -eta haren antzekoak- **adeitasunez** hartu beharreko arerioak zirela. Patxi Zubizarreta

Noranahi hoala, aurkituko ote duk inon apaizik, honek tratatzen hauen **adeitasunez** tratatuko hauenik? Askoren artean

Berarekin topo egiten zuen guztietan, eskua **adeitasunez** estutu eta tea hartzera gonbidatzen zuen. Jose Morales

Hau harengandik ihes egiten saiatu zen, baina anai Eliasek **adeitasunez** geldiarazi zuen, eta era onean eskatzen zion esan ziezaiola zergatik ihes egiten zion eta zergatik ez zuen berarekin hitz egin nahi. Askoren artean

-Barkatu diot Ahmeti zuenganako **adeitasunez** -esan zuen-. Fernando Rey

Bi emakumeek **adeitasunez** besarkatu zuten elkar, edo hala itxuratu zuten behintzat. Patxi Zubizarreta

Ohiz kanpoko **adeitasunez**, gelditzeko esan dizu poliziak. Rafa Egiguren

Damen aho urrintsuetatik mota guztietako iradokizunak eta galderak iristen zitzaizkion, sotiltasunez eta **adeitasunez** mukuru beteak. Jose Morales

Louren oinetan geratu zen lur hautsez betean etzanda, eta uste onez eta **adeitasunez** egin zion irribarre. Koro Navarro

Gula, zuk **adeitasunez** gosea deitzen diozuna. Agustin Otsoa

Mathildek eskua hartu eta estutu egin zion **adeitasunez**. Anjel Lertxundi

Ez gorrotoz, ez **adeitasunez**. Anjel Lertxundi

6 ***adeitasunezko*** *izlag*

Adeitasunezko afari bateko gomita hari idatziz eginez. Jon Muñoz

Whittaker andrearen **adeitasunezko** jokamolde jasanbera hura ez zen mugatzen soilik beraren ahaide zorigaitzekoenengana. Mirentxu Larrañaga

Curtisek eskua luzatu zion aitaordeari, aurrez aurre baitzuen, eta **adeitasunezko** irribarreño bat egin. Mirentxu Larrañaga

Adeitasunezko begirada itzuli zion Mathildek. Anjel Lertxundi

Kapela jasotzeak gizarte jakin batzuetan baizik ez du **adeitasunezko** agurraren zentzua: konbentzio hori galtzen ari da gainera, kapela burutik kendu gabe erabiltzeko ohitura nagusitzen ari baita azken aldi honetan. Josu Zabaleta

Oroitzen naiz, baina, muxu doi bat eman zenidala masailetan, ezagunen arteko **adeitasunezko** agurra, besterik gabe, baina halako berotasun bat sumatu nuen edo sumatu uste izan nuen zure agur-keinu horretan, barruko joranari eutsi edo jaregin tentsioan bazeunde bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Ni ikustean **adeitasunezko** imintzio bat egin zuen eskuarekin airean, erdibidean geratu zitzaion keinu labur eta lotsati bat, ikustekoa baita zeinen urria den gizasemeok elkarri diosalak egiteko erabiltzen dugun imintzioen errepertorioa. Joxean Agirre

Adeitasunezko ikurrak, esaterako, askotan halako adierazgarritasun naturalaz hornituak daudenak (gogora dezagun, adibidez, txinatarrek enperadorea bederatzi aldiz ahuzpeztuz agurtzen zutela), haiek ere arau batek finkatuak daude. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adeitasun eta (12); **adeitasun handia** (3); **adeitasun handiarekin** (3); **adeitasun handiz** (16); **adeitasun osoz** (6); **adeitasuna erakutsi** (3); **adeitasuna eta** (8); **adeitasunari esker** (4); **adeitasunez agurtu** (6); **adeitasunez agurtu zuen** (3); **adeitasunez egin** (3); **adeitasunez esan** (3); **adeitasunez eta** (4); **adeitasunez hartu** (4); **adeitasunez tratatzen** (4); **eta adeitasun** (6); **eta adeitasuna** (6); **eta adeitasunez** (14); **eta adeitasunez agurtu** (3); **nolako adeitasunez** (4); **zure adeitasunari** (3)

---

adeitsu **1** *izond* adeitasunez aritzen dena.

Adeitsua zen berez, bai portaeran eta bai hizketan; bere barnean erabakita zeukanez, ez zion sekula inori hitz iraingarri edo zatarrik zuzendu. Askoren artean

Gizon onbera eta **adeitsu** honek gogo onez hartzen zuen Frantzisko, begirune handia baitzion. Askoren artean

Bularra goitik beheraino dominaz josirik daukan atezain on, atsegin, **adeitsu**, begiurdin horrek berak bere eskuez irekitzen du ate izugarria. Jose Morales

Inon ez dut ikusi hain jaun **adeitsurik**. Jose Morales

Jainkoak, zuen Sortzaile **adeitsu** eta onberak, sortu zintuztenean, hazteko eta ugaritzeko agindu zizuen. Askoren artean

Denak konturatu baitziren oso gizon **adeitsua** zela eztabaidatzeko orduan ere. Jose Morales

Oso jende **adeitsua**. Josu Zabaleta

Oro har, oso **adeitsuak** izan ziren, adeitsuegiak agian. Jose Morales

Erraza zen harekin hitz egitea, oso irekia, oso eskuzabala eta erabat **adeitsu** eta atsegina baitzen Joan egin nintzen, urrats hark emakume guztiz **adeitsu** hura niri ohore handiz hitz bat erantzutera estekatuko zuelako uste osoan. Oskar Arana

2 (gauzei buruz)

Biografoek Frantzisko gaztearen bihotz ona eta eskuzabaltasuna azpimarratzen dute, eta bereziki behartsuenganako sentiberatasuna; baita bere izaera **adeitsua** ere, besteen errespetuan oinarritzen zena. Askoren artean

Nire idazmahaiaren gainean, paketetxo bat aurkitu nuen, nire arreta **adeitsura** zuzendua. Juan Garzia

Abildade berezia dute apaiz batzuek galdera **adeitsuen** bidez agintzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Manera **adeitsuko** gizona. Koro Navarro

Emakumeak keinu **adeitsua** egin, eta maindirea atondu zion kokotsaren azpian. Anjel Lertxundi

Jeneralak nahikoa abegi on eta **adeitsua** egiten zion hasieran Tentetnikovi; baina ezinezkoa zitzaien elkarrekin guztiz ondo etortzea. Jose Morales

Buru-markurtu **adeitsua** egin zion Txitxikovi, eta Txitxikovek modu berean erantzun zion. Jose Morales

Agureak kolpe **adeitsua** eman zion Andreasi bizkarrean, mutila lasaitu nahirik. Anjel Lertxundi

Bizkarrean emandako kolpetxo **adeitsuekin** baretu nahi izan nuen Herio, zernahi zelarik ere haren jarrera erretxinduaren kausa. Anjel Lertxundi

Agur-hitz **adeitsuei** zein buru-makurtu atseginari esker, aise irabazi zuen emakumearen estimua. Jose Morales

Jai-oturuntzetako solas **adeitsuen** artean ezagutu zituen haien ideiak eta haien hizkuntza. Juan Garzia

Miragarri bezain hurbileko agertzen zitzaion Kristoren itxura **adeitsua** ikusteak neurriz gaineko poza sortzen zion. Askoren artean

Mindelo hiri **adeitsuko** herriaren esker on sentitua. Bego Montorio

Jainko guztiz eskuzabalak ez zuen medikua mundu honetako saririk gabe utzi nahi izan bere zainketa **adeitsuengatik** eta berberak ordaindu zion pobrearen ordez, mesede bat eginez. Askoren artean

-Mila esker -irribarrerik **adeitsuenaz** lagundu zuen erantzuna. Josu Landa

Adaren bisita aitzakiatzat jarri, eta ahal nuen modurik **adeitsuenean** desenkusatu nintzen: [...]. Anjel Lertxundi

Ni, hala iruditzen zitzaidan, arreta handiagoz artatu nau, begirada serio, zuhur eta **adeitsuz**. Urtzi Urrutikoetxea

3 (adizlagun gisa) ik **adeitsuki**.

Adeitsu hartu ninduen beti. Anjel Lertxundi

Adeitsu, kapelaren ertza jaso zuen gu agurtzeko. Anjel Lertxundi

Eskua jarri zuen **adeitsu** agurearen bizkarrean. Anjel Lertxundi

Aita dohatsuak, orduan, **adeitsu** eman zuen baietza, aholkua apalki onartuz. Jendea, pozik eta **adeitsu**, sakabanatzen ari zen. Askoren artean

Oso **adeitsu** hitz egin zidan. Anjel Lertxundi

Txitxikoven zakarkeria eta adeitasunik eza gorabehera, Koshkariovek izugarri **adeitsu** eta samur jokatu zuen. Jose Morales

Adam Johnsonekin **adeitsuegi** edo hurbilegi jokatu ote nuen pentsatu nuen. Joxan Elosegi

Ahal nuen **adeitsuen** agurtu nuen, eta kalera irten ginen. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adeitsu agertzen (3); **adeitsu agurtu** (4); **adeitsu baino** (3); **adeitsu bat** (17); **adeitsu bat eman** (3); **adeitsu baten** (3); **adeitsu batez** (8); **adeitsu erantzun** (6); **adeitsu eta** (28); **adeitsu harekin** (3); **adeitsu hartu** (3); **adeitsu izan** (3); **adeitsu jokatzen** (3); **adeitsua da** (13); **adeitsua egin** (10); **adeitsua egin zion** (5); **adeitsua eta** (9); **adeitsua izan** (8); **adeitsua izan zen** (3); **adeitsua zen** (8); **adeitsuagoa da** (3); **adeitsuak eta** (3); **adeitsuak izan** (4); **baina adeitsu** (3); **baino adeitsuago** (5); **baino adeitsuagoa** (3); **bezain adeitsu** (5); **bezain adeitsua** (4); **ere adeitsu** (3); **eredu adeitsua** (3); **eta adeitsu** (14); **eta adeitsua** (10); **eta adeitsuagoa** (3); **eta oso adeitsu** (3); **ezinago adeitsua** (3); **galdetu zion adeitsu** (3); **gizon adeitsua** (9); **gizon adeitsua da** (4); **gutun adeitsu** (3); **hain adeitsu** (3); **harreman eredu adeitsua** (3); **harrera adeitsua** (3); **hitz adeitsu** (5); **hitz adeitsu bat** (3); **irribarre adeitsua** (4); **kolpe adeitsu** (3); **kolpe adeitsu bat** (3); **kolpe adeitsua** (3); **modu adeitsu** (3); **oso adeitsu** (16); **oso adeitsua** (15); **oso adeitsua izan** (3); **oso adeitsuak** (4); **oso adeitsuak izan** (3); **zion adeitsu** (4)

---

adeitsuki *adlag* era adeitsuan.

Funtzionarioak **adeitsuki** ireki zuen marrazki dekadentista batez apaindutako zilarrezko tabako-kutxatila. Jose Morales

Adeitsuki agurtu zuten elkar masailean muin emanez, eta segidan biak batera eseri ziren besaulkietako batean. Patxi Zubizarreta

Nik neure eginbide profesionala betea nuen; txosten bat idatzi nuen, faktura bere zigiluekin eta irazpaperezko saiokin pitoreskoa erantsi hari, fabrikara itzuli, hantxe aurkeztu, nire lan-saria jaso, eta **adeitsuki** agur esateko puntuan nengoen. Juan Garzia

Egor Timofeievitxek irudikatu zuen Shevirev doktorea zela, gaixoen kexak entzuten, eta, aditu baten begitarte arretatsu eta serioa jarriz, **adeitsuki** erantzun zion: [...]. Jose Morales

Gero, nire senar maiteak, **adeitsuki**, Bob artzainaren igandeetako ediktuen ondorioz, beheko sotoan gordeta utzi genituen gauza guztiak igo zituen logelara. Oskar Arana

Ez neukan gogorik aurkari makaldu baten kontra egiteko, eta hala adierazi nion **adeitsuki**. Berria - Kultura

-Gaur bigarren eguna da -erantzun zioten, gizalegez eta **adeitsuki**-. Jose Morales

---

adelanto *iz* aurrerapena.

Belarrak ondu beharrak, eskerrak **adelanto** eta makinabat makineria eskuratu duenari. Pello Zabala

Aurrera kargatxo segundo pizka horiena, pilatuz pilatuz, 400 urte pasatakoan, beste alderako egun baten **adelanto** edo aurrerakarga pilatu zaigu. Pello Zabala

Hainbeste **adelanto** eta, elur pixka batekin, zera... Pablo Sastre

---

adelatu, adelatzen da/du *ad* prestatu, antolatu. ik **apailatu**.

Eguerdiko bazkariarentzat, Antso Handia menu berezia **adelatuko** duten Mauleko 10 jatetxeetara joan daiteke jendea edo kirol zelaian bertan ogitartez hazi. Berria - Kultura

Ospetsuek meza, mintzaldiak eta Herriko Etxearen kontu **adelatu** bazkaria zeuzkaten egitarauan. Itxaro Borda

Trikotatzen eta josten, pastetxak **adelatzen**, elkarteen alde juridikoen sakontzen eta zergak ez ordaintzeko baliatzen. Itxaro Borda

Espainiera horren pipita gaztelania izango da; baina gero hispanitateko herrialde guztiek, bakoitzak bere izpirituа gehituz, denen artean mintzaira berri bat **adelatuko** dute. Joxe Azurmendi

Bitxia da, esate baterako, *La leyenda de Jaun de Alzate*-n, adibidez, euskal arima eta mitologia nola germaniartzen duen, Ortzi eta Thor berdinduz, bertute nietzschearrez **adelatuz**. Joxe Azurmendi

Pastoral emanaldiaren osteko afaria, azkenik, Zuberoako ikastolek **adelatutakoa** izan behar luke. Berria - Kultura

---

adelatze *iz* prestatzea, antolatzea.

Merexitürik izan den kausitze hau, halere, hilabete eta hilabete iraün düan **adelatze** lan baten emaitza da. Herria

---

adelu *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* prestaketa lana.

Baina ezin ditzakegu aipatu gabe ere utz hau bezalako pastorala klasiko baten muntadura harrigarriak aitzinetik eskatzen dituen egunezko eta gauezko aparailu eta **adeluak** edo azken orenean alde orotarik jin beribilen kokatzeko, jendarme ala guardien beharrrik gabe Ainharbe, Ündüreine, Ezpeize, Ürrüstoi-Larrabile, Sarrikotapeko lau auzoetako atezain plaxentek, bakotxak bere sailean egin dizun batzarri ona. ETC-prentsa

---

adenina *(orobat **adinina**) iz* azido nukleikoen osagaien oinarria.

ADNaren osagai nagusiak lau dira: **adenina**, guanina, zitosina eta timina. Berria - Gaiak

A (**adenina**), G (guanina), C (citosina) eta T (timina). Pello Salaburu

Gugan gertatzen diren erreakzio kimiko etengabeek zerbait miragarriren jabe garela pentsatzera bultzatzen gaituzte, baina **adinina**, guanina, timina eta zitosina izeneko koktelekin harrapatutako katua baino ez da. Berria - Kultura

---

adenosina *(corpusean ez dago; ETCn **208** agerraldi; hitz elkartuetan orobat **adosin**)* **1** *iz* adenina base nitrogenatuak eta erribosa azukreak osatzen duten nukleosidoa.

Adenosina adenina base nitrogenatuak eta erribosa azukreak osatzen duten nukleosido bat da. ETC-entziklopedia

Transkripzioa amaitzen denean, RNA polimerasarekin elkarturiko endonukleasa konplexu baten bidez mozten da eta 3? muturrean dagoen mozketa-gunean 250 **adenosina**-hondar gaineratzen dira. ETC-entziklopedia

Kantitate txikietan (kafe katilu batean), logura eragoztea edo atzeratzea du ezaugarririk nabarmenena, **adenosina** neurotransmisorearen errezeptoreak blokeatzen baititu. ETC-prentsa

Gaitzaren izen zuzena aminasa **adenosina** urritasuna da. ETC-prentsa

Kafeinak, adibidez, logura sortzen duen **adenosina** izeneko neurotransmisore baten hartzailea blokeatzen du, eta horregatik kafeak laguntzen gaitu esna mantentzen. ETC-prentsa

Ez dago arrazoirik, ordea, pentsatzeko oso alde nabarmena izango dutenik zitidinan edo Zussman-ek (1953) aztertutako **adenosina** nukleosido ziklikoan ageri direnekin, eta horiek ere simetrikoki esleitu dira. ETC-literatura, saiakera

Efektu psikoaktiboen gabezia, CB1 hartzaileari lotzeko gaitasunik ez daukalako da, eta CB2 eta **adenosina** hartzaileari lotzearen ondorioz hainbat propietate neurobabesle ditu CBD-k. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***adenosin difosfato*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Adenosina fosforilatzen denean nukleotido bat sortzen da (adenosin monofosfatoa -AMP-, **adenosin difosfatoa** -ADP- edo adenosin trifosfatoa -ATP- fosfato talde bat, bi edo hiru -hurrenez hurren- lotzen direnean). ETC-entziklopedia

Hori da **Adenosin difosfato** ADParen fosforilazio oxidatiborako energia-iturria. ATP zati bat elektroien arnasketa-katean garraio alderantzikatua eragiteko erabiltzen da, horrela NADH lortu ahal izateko. ETC-entziklopedia

3 ***adenosin monofosfato zikliko*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Adenosin monofosfato ziklikoa (AMPc edo AMP ziklikoa ere deitua) erreakzio biokimiko askotan parte hartzen duen nukleotidoa da. ETC-entziklopedia

4 ***adenosin trifosfato*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Energia hori zelula beraren mitokondriek sortutako ATP-tik (**adenosin trifosfatotik**) eskuratzen dute. ETC-entziklopedia

5 ***adenosina difosfato*** *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

8.38 Adenosina trifosfatoa (ATP) hidrolizatzen denean, **adenosina difosfatoa** (ADP) eta fosfato ez-organikoa eratzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azetil-CoA azetil fosfato bilaka daiteke (15.5 taulako zerrendan dago hori ere), eta azetil fosfatoaren energia handiko fosfato taldea **adenosina difosfatora** (ADP) transferi daiteke, azetato kinasaren bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bigarren eta hirugarren entzimak, **adenosina difosfato** glukosa (ADPG) sortzen duen ADP-glukosa pirofosforilasarekin batera, sakarosa -eta almidoi-sintesiko entzima erregulatuak dira (ikus 8. kapitulua). ETC-zientzia, zuzenbidea

Molekula honek fosfatoen arteko lotura kobalenteetan pilaturik dauka energia. Lotura bakoitzak 7,7 kcal/mol askatzen du. Hots, adenosina trifosfatoaren hidrolisiak, **adenosina difosfatoa** sortzeko, 7,7 kcal/mol askatzen du. ETC-entziklopedia

6 ***adenosina trifosfato*** *(corpusean ez dago; ETCn **40** agerraldi)*

Adenosina trifosfatoa (ATP): fosfato taldeak mugiarazten ditu. ETC-entziklopedia

Ekuazio kimikoen eta ekuazio biokimikoen arteko desberdintasuna azaltzeko, honako hidrolisi hau aztertuko dugu: ATP **adenosina trifosfatotik** abiaturik, adenosina difosfatoa (ADP) eta fosfato ez-organiko bat (Pi) eratzeko erreakzioa, non ATPasa entzimak katalizatzaile-lana egiten baitu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adenosina trifosfato garrantzitsuaren osagaiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala, azido oxaloazetikoa birsortzen da, eta, erreakzio akoplatu batean, **adenosina trifosfato** (ATP) molekula bat sortzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gorputzean sartzen dugun janari eta oxigeno ia guztia, prozesatu ondoren, mitokondrioei ematen zaie; mitokondrioetan, **adenosina trifosfato** edo ATP izeneko molekula bihurtzen dute. ETC-literatura, saiakera

Screening metodoen artean ATP (**adenosina trifosfato**) molekula antzematen duen kit delakoa aipa daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

adenosindifosfato *iz* konposatu kimikoa, nukleosido batek eta elkarri loturiko bi fosfato erradikalek osatua.

Badira, hala ere, erregai-hornia mantentzeko hiru modu: a) Muskulua uzkurtzeko energia askatu eta gero, ADP (**adenosindifosfato**) bihurtzen da ATPa. Irene Aldasoro

---

adenosintrifosfato *iz* konposatu kimikoa, nukleosido batek eta elkarri loturiko hiru fosfato erradikalek osatua.

Muskuluak ez dira salbuespen, **adenosintrifosfato** edo ATP deritzon gai kimikoa behar baitute lan egiteko. Irene Aldasoro

---

adesio ik **adhesio**.

---

adexkide ik **adiskide**.

---

adhesio *(orobat **adesio**) iz* atxikimendua.

Jarri alde batean Musset, hots, lagun hurkoari ezin zitzaiola hitz bakar bat ere hartu deklaratzen zuen idazlea, eta jarri bestean Lautréamont edo Nodier, eta zuzenagoa eta argiagoa dirudi azken bi horien jarrera; Parnasoan askozaz ere **adhesio** gehiago lortuko lituzkeena gainera. Bernardo Atxaga

Eskubide demokratikoetaz mintzatuz gero, Irlanda, Portugal eta Poloniaren **adesioa** ere zalantzan ezarri beharko litzateke, abortoaren kontra baitira. Berria - Euskal Herria

---

adi **1** *iz* arreta.

Oihanaren usain hezeak heldu zaizkio txorien kantu eta hegaldi urrietan **adia** jartzen duen bitartean. Pello Lizarralde

Zeharka eserita, **adia** gona motzaren gainean zeukan ispilutxoan jarririk, su eta ke ziharduen bekainetako ile bihurriren batekin. Migel Angel Mintegi

Beste ezein dibertimenduk ez zuen emakumearen **adia** erakartzen, ez xumeagoek ez eta korapilatsuagoek. Mirentxu Larrañaga

Leihora gerturatu zen, **adia** apur bat galdua, aita Roustan zentzudunari aholku eskatu behar ziola buruan zerabilela, eta, orduan, behean, jende multzo bat bereizi zuen eskuohe baten inguruan, merkatuaren esparruan. Karlos Zabala

", egin zuen bere baitan, **adia** etorri zitzaiolarik. Patxi Zubizarreta

2 *adlag* zentzumenak erne.

Atsegin baduzu entzutea, ikasi egingo duzu; belarria **adi** jartzen baduzu, jakintsu bihurtuko. Elizen arteko biblia

Beude zabalik zure begiak eta **adi** zure belarriak zerbitzari honen otoitzera. Elizen arteko biblia

Mintza, Jauna, **adi** duzu zeure morroi hau. Elizen arteko biblia

-Esadak, ez izan lotsati, **adi-adi** naukak, ez duk ikusten? Migel Angel Mintegi

Tira, **adi** naukazue -esan zien, kikara ezpainetara poliki hurbilduz joan bitartean. Migel Angel Mintegi

Egin kasu, Job, entzun **adi**: egon isilik, nik hitz egingo dut. Elizen arteko biblia

Zintzoengan baititu Jaunak begiak, haien deiak entzuteko **adi** belarriak; baina gaizkileei aurpegi ematen die Jaunak. Elizen arteko biblia

Harry geldi-geldi geratu zen, **adi** eta erne zer entzungo-. Iñaki Mendiguren

Eseritakoan **adi** begira geratu zitzaien Maiza, soaren bidez has zitezen eskatuz. Migel Angel Mintegi

Besaulki birakarian eroso ezarririk, kikara bat hartu eta zurrutadatxo bat eman ondoren, detektibeari begiratu zion **adi**. Migel Angel Mintegi

McGonagall andereñoak **adi-adi** begiratu zion. Iñaki Mendiguren

3 ***adi egon***

Maltzurra gaizki-esaleei **dago adi**, gezurtia mintzo gaiztokoari. Elizen arteko biblia

Harry ez **zegoen** oso **adi** entzuten. Iñaki Mendiguren

Entzun hau, herri guztiok, **egon adi** , munduko biztanleok. Elizen arteko biblia

Berak egin zituen haien bihotzak, eta **adi dago** haien egintza guztiei. Elizen arteko biblia

4 *adi-adi* *(orobat **adiadi** g.er.)* erabat adi.

-Esadak, ez izan lotsati, **adi-adi** naukak, ez duk ikusten? Migel Angel Mintegi

Elizan, **adi-adi** begiratu ohi nion Jesus gurutziltzatuari, halaxe ageri baitzuen hango beira-leiho koloretakoak, eta errukia ematen zidan, konturatzen bainintzen zein ankerra zen eta zein minbera gertatu behar zitzaion. Mirentxu Larrañaga

Molly berarengandik apur bat aldendu zuen, eta eskuaz igurtzi zizkion malkoak, begietara **adi-adi** so egiten ziolarik. Mirentxu Larrañaga

Belar eta urrebotoi artean etzaten ginen ibaialdean, eta gorantz begiratzen genuen, zeruan bizi-bizi lerratzen ziren hodeiei **adi-adi** . Mirentxu Larrañaga

5 *adia galdu*

Alberto ere luzaro egon zen geldirik eserlekuan, **adia galdu** izan balu bezala, ertzainek handik atera zuten arte. Iban Zaldua

Druida bitxia **adia galdurik** zegoen, erbinudea bere mantu barruan egokitzen. Joanes Urkixo

Arrats horretan bertan hain sabelbete itzela egiten dute, ezen mutu eta **adia galdurik** geratzen baitira, mihia ezin mugiturik, hontza baten antzera jendeari begira. Jose Morales

Alabaina, **adia** guztarrats horretan bertan hain sabelbete itzela egiten dute, ezen mutu eta **adia galdurik** geratzen baitira, mihia ezin mugiturik, hontza baten antzera jendeari begira...iz **galdu** gabe, ezustean, kalearen beste aldetik lantokiko neskak bistatu zituen, Hamidaren lagunak. Jose Morales

Hamidak ezkontzari buruzko galderaren bat edo beste egin zion, baina **adia galdu** antzean entzun zituen arrapostuak. Patxi Zubizarreta

Alberto ere luzaro egon zen geldirik eserlekuan, **adia** galdu izan balu bezala, ertzainek handik atera zuten arte. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adi adi (397); **adi adi ari** (4); **adi adi begira** (26); **adi adi begiratu** (30); **adi adi begiratuz** (3); **adi adi begiratzen** (22); **adi adi dago** (4); **adi adi egon** (32); **adi adi egongo** (4); **adi adi egoten** (5); **adi adi entzun** (15); **adi adi entzuten** (15); **adi adi erreparatzen** (3); **adi adi eta** (6); **adi adi geratu** (14); **adi adi jarri** (12); **adi adi jokatu** (8); **adi adi so** (11); **adi adi zegoela** (3); **adi adi zegoen** (20); **adi adi zeudela** (3); **adi adi zeuden** (8); **adi adi zituela** (3); **adi ari** (4); **adi aztertu** (3); **adi begira** (27); **adi begira geratu** (4); **adi begiratu** (34); **adi begiratu zidan** (4); **adi begiratu zion** (17); **adi begiratu zioten** (3); **adi begiratu zuen** (4); **adi begiratuz** (5); **adi begiratzen** (26); **adi begiratzen zion** (6); **adi begiratzen zuen** (3); **adi bizi** (6); **adi dago** (14); **adi dagoen** (4); **adi daude** (10); **adi dezala** (4); **adi egon** (126); **adi egon behar** (35); **adi egon beharko** (17); **adi egon beharra** (5); **adi egon zen** (12); **adi egon zitzaion** (5); **adi egonez** (3); **adi egongo** (12); **adi egongo dira** (3); **adi egonik** (3); **adi egotea da** (3); **adi egoteko** (28); **adi egoteko eskatu** (8); **adi egoten** (17); **adi egoten da** (3); **adi egoten zen** (3); **adi egotera** (3); **adi entzun** (27); **adi entzun zituen** (5); **adi entzungo** (3); **adi entzuteko** (3); **adi entzuten** (34); **adi entzuten ditu** (3); **adi entzuten zion** (6); **adi entzuten zuen** (6); **adi erreparatzen** (5); **adi eta** (33); **adi eta erne** (9); **adi ez** (8); **adi ezak** (3); **adi ezazu** (7); **adi ezazue** (3); **adi gelditu** (4); **adi gelditu zen** (3); **adi geratu** (24); **adi geratu da** (3); **adi geratu zen** (9); **adi geratu ziren** (4); **adi geratzen** (6); **adi ibili** (16); **adi ibili beharko** (5); **adi ibiltzea** (4); **adi ibiltzeko** (5); **adi irakurri** (4); **adi izan** (4); **adi izango** (4); **adi jarraitu** (9); **adi jarraituko** (4); **adi jarraitzeko** (3); **adi jarraitzen** (4); **adi jarri** (22); **adi jarri nintzen** (5); **adi jarri zen** (7); **adi jartzen** (5); **adi jartzen da** (3); **adi jokatu** (10); **adi jokatu behar** (6); **adi lotu** (3); **adi nago** (4); **adi nengoela** (3); **adi nengoen** (4); **adi nezakeen** (5); **adi nire** (5); **adi nire deiadarrari** (3); **adi orain** (7); **adi segitzen** (4); **adi so** (12); **adi so egin** (5); **adi so egiten** (3); **adi zaindu** (3); **adi zegoela** (6); **adi zegoen** (34); **adi zeudela** (4); **adi zeuden** (19); **adi zeukan** (3); **adi zezakeen** (4); **adi zitekeen** (7); **adi zitezkeen** (4); **adi zituela** (3); **aurrean adi** (3); **baina adi** (17); **baina adi adi** (5); **baina adi egon** (3); **bakoitzari adi** (3); **bat adi** (4); **bati adi** (8); **begiak adi** (3); **belarria adi** (6); **belarriak adi** (7); **berari adi** (5); **beti adi** (7); **bezain adi** (3); **denak adi** (4); **denari adi** (4); **edo adi** (3); **egon adi** (13); **elkarri adi** (4); **elkarri adi adi** (3); **elkarrizketari adi** (3); **entzun adi** (6); **entzuteko adi** (3); **ere adi** (20); **ere adi adi** (6); **ere adi egon** (3); **erne eta adi** (3); **eta adi** (107); **eta adi adi** (38); **eta adi egon** (10); **eta adi egoteko** (5); **eta adi entzun** (3); **eta belarriak adi** (4); **eta egon adi** (4); **ezin adi** (4); **guztiak adi** (6); **guztiak adi adi** (4); **guztiei adi** (5); **hain adi** (6); **hari adi** (6); **harryk adi** (7); **harryk adi adi** (6); **hitzei adi** (4); **horri adi** (3); **hotsari adi** (5); **hotsei adi** (7); **irratiari adi** (3); **jarri eta adi** (3); **jendea adi** (3); **mugimenduei adi** (4); **musikari adi** (3); **ni adi** (3); **niri adi** (4); **oso adi** (12); **teknikariak adi** (3); **zaude adi** (5); **zaude adi nire** (4); **zegoen adi** (5); **zen adi** (5); **zen eta adi** (4); **zerukoak adi** (3); **zerukoak adi dezala** (3); **ziren adi** (4); **zuen adi** (5)

adiago jarri (3)

adia galdurik (7); **eta adia galdurik** (3)

---

adia *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)* **1** *iz* auhena edo deitorea, eskuarki norbaiten heriotzak eragina.

Ahulduz doa astoen **adia** , itsasertzean zehar. ETC-literatura, saiakera

Aldarte honetan bizi zirela, gau euritsu batean andrearen etxe aurretik korrika igarotzean, gizon batek **adia** lakarra aditu zuen (piztien **adia** karraskaria, jaio berriarena izanagatik ere gizakia larritzen duena). ETC-literatura, saiakera

Aurrena maskotaren **adia** batzuk izan ziren. ETC-literatura, saiakera

Xandot eta Idane petrikiloaren etxera berriro sartzen saiatu dira, baina aterarazi egin dituzte, nahiz eta mutikoak **adia** samingarriak egiten jarraitzen duen. ETC-literatura, saiakera

2 *adia egin*

-Ene... - **adia egin** zuen oinazezko ufako bat boteaz. Jon Muñoz

---

adiabatiko *(corpusean ez dago; ETCn **546** agerraldi)* **1** *iz* termodinamikan, beroaren transferentziarik gabe gertatzen den prozesua edo eraldatzea.

Bestalde, hori aldagai bakarreko funtzio batera laburbil dezakegu, horma islatzaileen arteko erradiazioaren konpresio **adiabatikoak** entropia aldatzen ez duela onartuz gero. ETC-literatura, saiakera

Metodo honen ondoren beste batzuetara jo behar da tenperatura baxuagoak lortu nahi badira, eta erabili izan den metodoa desmagnetizazio **adiabatikoa** deritzona da. ETC-prentsa

Horregatik, bereizi egin behar dira prozesuak tenperatura aldatzeke gertatzen direnean (isotermikoak), eta beroa transferitu gabe (irabazi edo galdu gabe) gertatzen direnean (**adiabatikoak**). ETC-prentsa

Neurketa hori ponpa kalorimetrikoa erabilita egiten da, berau sistema **adiabatikotzat** hartuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

14. gaian ikusitakoaren arabera, soinuaren abiadura vsoinu=γyplp0 da airean; airearen koefiziente **adiabatikoa** γ ~ 1,4 da baldintza arruntetik gertu (ikus 26. ariketa); presioa, p; eta airearen dentsitatea, ρ0. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hedapen hori, inguruekin energia-transferentziarik ez badago -hots, hedapena **adiabatikoa** bada-, barne-energiaren kontura gertatzen da, eta ondorioz airea hoztu egiten da eta hodeien eraketa faboratu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arnold Sommerfeldek aldaezin **adiabatiko** hau mekanika klasikoaren ekintzaren aldagaitzat identifikatu zuen. ETC-entziklopedia

Haize laster heze batek mendi horren haizaldean gora egin eta hozte **adiabatikoaren** eraginez kondentsatzen denean gelditasunezko hodeiak eta euriak sortzen ditu: **adiabatiko** hezearen gradientearen arabera hozten da (0,5 gradu zentigradu ehun metroko). ETC-entziklopedia

Hedapen hau, gasolina motorrean ez bezala, **adiabatikoa** da, hots, mugimendu zuzen bat bultzatuz eragiten du pistoiaren ibilbidean zehar. ETC-entziklopedia

2 *prozesu adiabatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Horri esker, **prozesu adiabatiko** batean, egin behar den lan totalaren funtzioan adieraz daiteke sistemaren egoera-aldakuntza, eta ez dago lan-mota edo egin beharreko urrats-sekuentzia zehaztu beharrik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Benetan gertatzen den prozesua bi prozesuren artekoa da: batetik, prozesu isotermo arras motela eta, bestetik, **prozesu adiabatiko** azkar-azkarra. ETC-zientzia, zuzenbidea

Suposatuz aire sikuak gas ideal moduan jarduten duela, **prozesu adiabatiko** baten ekuazio kalorimetrikoa honela geratuko da: ETC-zientzia, zuzenbidea

Sarrera subsonikoa balitz Mx < 1, irteera, Prandtl-en ekuazioaren arabera, supersonikoa litzateke, eta (1.107) ekuazioaren aplikazioak entropiaren murrizketara eramango luke **prozesu adiabatiko** batean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sarreran ikusi dugun bezala, hauxe da **prozesu adiabatiko** honetan gas ideal batek betetzen duen ekuazioetako bat: ETC-zientzia, zuzenbidea

Sadi Carnotek 1824ean ziklo bat deskribatu zuen, bi **prozesu adiabatiko** (bero trukaketa gabekoak) eta bi prozesu isotermoz (tenperatura konstantekoak) osatua. ETC-entziklopedia

3 ***transformazio adiabatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Jakinik dS=--delta Q/T, **transformazio adiabatiko** itzulezin batentzat (--delta Q=0): ETC-entziklopedia

18-14 IRUDIA Ziklo itxicin, gasak **transformazio adiabatiko** infinitesimalerako: dU=- dW (18-16) ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, **transformazio adiabatiko** itzulgarri batean, beste hauek beteko dira: ETC-zientzia, zuzenbidea

---

adiagile *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* *iz* erostaria. ik **adiakari**; **auhendari**; **hiletari**.

Hego-haizeak hiru egunez ekarri zidan, basoaren oihartzunak bikoiztua, aizkoraren pinpi-panpa hots etengabea eta **adiagilea** . ETC-literatura, saiakera

Kataluniako ezker independentistak mezuak utzi eta programetara jotzeko, betiereko **adiagile** papera utzi eta Kataluniako gizartea errotik aldatzeko protagonismoa hartzeko; baita burujabetzan, justizia sozialean eta askatasun demokratikoetan oinarritutako esparru juridiko-politikoa zehazteko ere. ETC-prentsa

Erostari esaten zitzaien Bizkaian eta **adiagile** Gipuzkoan, hor ere "negarti profesionalak" bai baitzeuden. ETC-prentsa

Erostariak edo **adiagileak** elizkizunetan negar egiteagatik ordaintzen zaien pertsonak dira. Erostari esaten zitzaien Bizkaian eta **adiagile** Gipuzkoan. ETC-entziklopedia

---

adiaka *adlag* auhenka.

-Bai argi gogaikarriak! -esan zuen **adiaka** gizonaren beso artera murgiltzen zela. Lopez de Arana

Ni gidari, Roman aldamenean, eta Karmen atzean, negar-**adiaka** oraindik. Inazio Mujika Iraola

---

adiakari *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* **1** *iz* erostaria. ik **adiagile**; **auhendari**; **hiletari**.

Txori bat ote, perpaus txikiaren arima oraino osagabea ote, lamina bat ote, izaki ikusezin eta **adiakari** hori, zeinaren pleinua segidan errepikatzen baitzuen pianoak samurki? ETC-literatura, saiakera

Batetik, erostagile beharrean erostari beharko luke, edo haren sinonimo den **adiakari** edo aldiagile. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 irud/hed

Adiakaria izenekoa ere askotan aipatu ohi da, eta hontzaren edo urubiaren antzeko animalia bat dela uste da. ETC-literatura, saiakera

---

adiakatu, adiaka, adiakatzen da/du *ad* adia egin, kexatu.

"[...]", **adiakatzen** da Machado. Joxe Azurmendi

Atsoak hortzen artean **adiakatu** zuen, eta, ohean bira egitean, malgukiek kirrinka egin zuten. Lopez de Arana

---

adiarazi ik **adierazi**.

---

adib. *adibidez*-en laburdura.

Aurkibideko leku-izen bakoitzak zenbakiak eta letrak ditu segidan; **adib** ., "Ascoli: 6, 6G": lehenengo zenbakia mapari dagokio, ondorengo zenbakia eta letra mapako koordenatuei. Askoren artean

Hor dugu, **adib** ., Luis Villasantek eta Jose Luis Zurutuzak prestaturiko Anai Frantzisko, Arreba Klara. Askoren artean

Adib .: irakurlea une honetan, akaso, sentitzen ari dena. Imanol Zurutuza

1 Zel 42", **adib** ., Zelanoren Lehen Bizitzako 42. zenbakia da. Askoren artean

Franciscus izena *francus* hitzari lotua dago (ik. Askoren artean

Rex francorum esamoldea, **adib** .). Askoren artean

Inperiogileak eurei komeni zaien gobernu-egoitza batetik hasten dira normalean gobernatzen beren agindupeko lurrak: beren aberrian ezarritako hiriburutik (**adib** ., Erroma) edo leku berri batetik, menderatutako lurraldeen ertzean, erraza bada inperiogilearen jaioterritik hara iristea (**adib** ., Kalkuta). Iñaki Mendiguren

---

adibide **1** *iz* zerbait argitzeko, adierazteko edo jarraitzeko aipatzen edo erabiltzen den egite, aipu edo gertaera. ik **etsenplu**.

Horra hiperbolearen **adibide** bat. Iñigo Aranbarri

Hona hemen, horren **adibide**, Bizkaiko kristau ikasbide batetik hartutako pasartea. Koldo Zuazo

Sistema funtzioaniztun baten **adibide** da odol-zirkulazioa, gorputzean diren beste asko bezala, baina ingeniari proiektugilearen ahalmenetik kanpo dagoena. Irene Aldasoro

Teknologia kimiko sofistikatuaren **adibide** dira usaimena eta dastamena. Irene Aldasoro

Txetxenia da **adibidea** . Berria - Euskal Herria

Adibide bat jarriko dugu: [...]. Iñaki Mendiguren

Munduko hainbat herrialdetako bazterketaren **adibideak** eman ditu. Berria - Harian

Modernitatearen **adibideak** . Berria - Kultura

Garrantzi handiko bi **adibide** emango ditugu hori azaltzeko. Josu Zabaleta

Hona hemen, bi **adibide** *Euskaldunak* olerki liburutik hartutakoak: [...]. Pello Zabala

Har ditzadan **adibide** gisa Pragako hirian XV-XVI. mendeetan gertatutako bi istorio. Anjel Lertxundi

Bestalde, eta **adibide** gisa, ez da atzendu behar mendi-giroko artzain batek 300 ardi (eta ahari etab.) beren mutur eta izen bereziekin ikusten dituen tokian, mendi-giro hartakoa ez denak 299 aldiz klonatutako Dolly bakar bat baizik ez duela ikusten. Iñaki Segurola

Hona hemen **adibide** bat, esandakoaren frogagarri. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hamaika **adibide** paratuko ditugu ondoko orriotan, hizkuntza presente dagoen eremu guztietatik hartuak. Iñaki Arranz

Adibide bat ekartzeagatik, bestelakoan oso garrantzi handia duen autore batengandik hartuko dugu: Erwin Panofsky-k bere la Perspective comme "forme symbolique" liburuan sartu zuen hutsegitea. Josu Zabaleta

Nekez uka daiteke hori ez denik hala: horren hainbat **adibide** aterako da testuan zehar. Iñaki Heras

Saio bitxi hauetaz gainera, hainbat eta hainbat **adibide** batu daiteke aurreikuspen ustelen lekuko. Iñaki Heras

Gogoan har orain (52ii) **adibidea** . Itziar Laka

Aristofanesek jartzen duen Fidipidesen **adibidea** , ironiaz betea, guztiz interesgarria da politikaren heziketa sofistikoak jaso zituen kritikak neurtzeko. Askoren artean

Erkiziak, maisu keinu batez jarduna ez hausteko eskaturik, guk miresten genituen protesta kantarien **adibidea** ekarri zuen, gizarteari zernahi kritika egin ondoren diru sortak hartzen zituztela. Koldo Izagirre

Ana Fidelia Quiroz atleta ohiaren **adibidea** eskaini zuen, gainera, azaleko erredurak sendatu zituelako lokatzetatik lortutako kremari esker. Berria - Gaiak

Ikuspegi honetatik, lehen eta bigarren mailako zibilizazioen goraldi eta erorikoak beste testuinguru batzuetan ere oharturiko erritmo baten **adibideak** dira. Iñaki Mendiguren

Zalantzak sortzen dira (jasango ote dut?, gauza izango ote naiz?); konparazioak egiten dira (kolikoak baino min handiagoa ematen ote du?; orain urtebete izan nuen apendizitisa baino mingarriago ote?); **adibideak** bilatzen dira (halakok pasatu badu, nik ere pasatu ezinik ez daukat). Arantxa Iturbe

Adibideak juzgamenaren eskorgak dira, juzgamenaren berezko talentuaren falta dutenek saihestu ezin dituzten eskorgak. Ibon Uribarri

Irizpide honen arabera, ez dago oinarririk esateko (111) **adibidean** subjektua-aditza ala objektua-aditza harremana aurkitu behar dela. alderdi sozialistak orain ez du atzerriko gai askotan Blairrekin bat egiten; hor dugu Irakeko **adibidea**. Itziar Laka

Nafarroako **adibidea** ere jarri zuen Agirrezabalak. Berria - Harian

Alderdi Laboristaren Kongresuan, Gordon Brown Erresuma Batuko Ekonomia ministroak aurreratu zuen euren proposamena: "Zor duten dirutik guri dagokiguna barkatu egingo diegu erreforma bidean dauden herrialdeei", esan zuen eta "beste herrialdeak **adibidea** jarraitzera" gonbidatu. Berria - Ekonomia

Mezu hori transmititu behar dela, modaren garrantzia, eta ez bakarrik aktore-aktoresen kasuan: jendeak oso hurbil sentitzen dituen beste batzuen **adibideak** behar dituela. Xabier Mendiguren Elizegi

Horren **adibideak**, behin eta berriz ikusi ahal izan ditugu. Pello Zabala

Sarrera bakoitzaren edukia: sarrerako hitzaren esanahia, noiz gaztelaniaz, noiz frantsesez, batzuetan bitan; aurreko hiztegigileek hitzari buruz idatzitakoaren bilduma; eta literatur tradizioko **adibideak**, horien argitalpen urtea ere adierazita. Berria - Harian

2 (izenondoekin)

Adibide sinple batekin azaltzen saiatuko naiz. Xabier Kintana

Adibide xume bat jartzeko, gure bizitzak "itsasoan amaitzen diren ibaiak" izatea ez diogu errealitateari zor, poetari baizik. Bernardo Atxaga

Izterrezurraren burua da horren **adibide** ona: forma hemisferikoa du eta aldaka-hezurraren barrunbera egokitzen da. Irene Aldasoro

Bizkorraldiaren **adibide** ezaguna iraultzaren fenomenoa da. Iñaki Mendiguren

Film-ikuslearen egoera distantzia psikiko guztiz berezi baten **adibide** bikaina da. Josu Zabaleta

Ziurtasun ezaren **adibide** argigarria. Xabier Olarra

Kontserbadurismoaren **adibide** paregabea, Gizakia eta animalia hilkorrak bereizten dituena. Xabier Olarra

Hildebrandoren elizaren tragedia atzerakada espiritualaren **adibide** nabaria da, eliza munduko arazoetan nahasteak eta ekintza-modu sekularretara emateak lastertu zuen atzerakada. Iñaki Mendiguren

Irizpide ahul hori erabat sendotzen da, hizkuntza guztietako **adibide** argiak metodo berberaz egindako gramatiken bitartez azaldu behar direla erabakitzen badugu. Itziar Laka

Matematikak esperientziaren laguntzarik gabe berez zoriontsuki hedatzen den arrazoimen hutsaren **adibide** distiratsua ematen du. Ibon Uribarri

Hiri bat -dio Leibniz-en **adibide** famatua aipatuz-, ikuspuntu ezberdinetatik so egina, diferente ageri da, bata ikuspuntuak adina biderkatzen da. Joxe Azurmendi

Idazkera sistema horren **adibide** klasikoa txinatar idazkera da. Isabel Arrigain

Karlomagno bezain gerra-jaun sofistikatu eta konparatiboki zibilizatuaren inperioaren patuak ezintasun horren **adibide** dramatikoa ematen digu. Iñaki Mendiguren

Betebeharren arteko gatazka da zailtasun horren **adibide** garbia. Askoren artean

Beste **adibide** interesgarri asko ere aipa litezke gai honi buruz. Josu Zabaleta

Bi hizkuntzen arteko identitate funtsezkoaren **adibide** harrigarria. Xabier Olarra

Adibide inozo baten bidez azalduko dut esan nahi dudana. Koldo Zuazo

Adibide soil batek lagunduko digu argiago azaltzen. Josu Zabaleta

Adibide erraz eta garbi bat (Nelson Goodmanen liburutik hartua) perspektiba iraulia deitzen denarena da. Josu Zabaleta

Jarrera-desberdintasun horren **adibide** hutsal baina, hala ere, esanguratsua kapitalismoaren gotorlekuan ikusi zen Manhattan Island-en K.o. 1949an. Iñaki Mendiguren

Laburtasunaren hitzontzikeria horren, sententziaka jardun behar zoro horren **adibide** arauemailerik bila daiteke Hamleteko Polonio daniar estatu-gizon ospetsuaren mintzakeran. Juan Garzia

Adibide paradigmatiko legez, pasiboaren formaldatzearen egoera berrikusiko dugu. Itziar Laka

Giza portaeraren **adibide** onartezinak. Askoren artean

Argudioon **adibide** interesgarri bat George Berkeleyren Ateoen eta eszeptikoen aurkako Hilas eta Filonusen arteko hiru elkarrizketa (1713) idazkia da. Askoren artean

Horiek **adibide** historiko askoren artetik hautaturiko batzuk dira, eta estatu unibertsalen hilezkortasunari buruzko sinesmenak, egitate argi eta garbiek ezeztatu eta gero ere, hainbat mendez irauten duela erakusten dute. Iñaki Mendiguren

Bere txikitasunean ere oso **adibide** adierazgarria dela begitantzen zait. Koldo Zuazo

Oihartzun jolas huts hau, musikaltasunari zor dionak, zentzuz betea agertzen da **adibide** hautatu batzuetan: [...]. Iñaki Arranz

Ez gaitezen hain **adibide** urrunen bila joan; Europa beteta dago honelakoez. Juan Martin Elexpuru

Sinkretismo nazional-katoliko horren **adibide** txiki-txiki bat: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Metagramak, berez, hizki bakar bat aldatzen du: *zirt-zart* genuke **adibide** ereduzkoa. Iñaki Arranz

Bi **adibide** funtsezko baizik ez emateagatik. Jon Alonso

3 (izenlagunekin)

Antzeko **adibidea** ageri da Testamentu Berrian ziape-garauaren parabolarekin. Xabier Kintana

Kontrako **adibide** hauek, halere, ez lukete ezkutatu behar gramatikaren azterketa formalean aurkitzen ditugun elementu eta egiturek funtzio semantiko jakinekin duten lotura harrigarria. Itziar Laka

Nonahi aurkitzen ditugu halako **adibideak**. Iñaki Arranz

Alemanezko **adibide** horrek bokal-harmoniaren beste ezaugarri garrantzizko bat aipatzeko aukera ematen digu. Lourdes Oñederra

Nahiz horren aurka doan eguneroko esperientzia eta honek kontaezinezko **adibideak** ematen dizkigun erakutsiz gertakari baliagarriak eta kaltegarriak berdin erortzen direla, bereizkuntzarik gabe, jainkotiarren eta jainkogabeen gainera, ez diote horrengatik uko egin nahi izan beren aurreiritzi zaharkituari. Piarres Xarriton

Platoniar errepublika ezaguna bihurtu da amestutako betegintzarrearen ustezko **adibide** ohargarri gisa. Ibon Uribarri

Trentoko kontzilioan, aldiz, nahikoa izan zen hizkuntza politika berria protestanteek aitzinatzea eta horren **adibideak** eskaintzea, "fede zuzenaren" zaintzale bipilek berehala ezezkoa eman zezaten. Piarres Xarriton

Txinako **adibideak**, Needhamek bikain agertu duenez 1969, argi erakusten du merkataritzaren dinamikatik aparte ere gara daitekeela jakintza teknikoa. Koro Navarro

Goiko **adibide** horiek guztiak atzerriko zibilizazioen ordezkariek sorturiko inperioetatik hartutakoak dira. Iñaki Mendiguren

Gauzak buru eta bihotz hotzez aztertzeko, erbesteko **adibide** bat ekarriko dut lehenengo hona. Koldo Zuazo

Gertuko **adibideak** dauzkagu gurean bertan. Iñaki Heras

Argudioa osatzeko, beste muturreko **adibide** bat aurkezten dugu. Itziar Laka

Lehen **adibide** honekin ikusten da enuntziatuaren materialtasuna ez dela definitzen betetzen duen espazioarekin edo bera formulatu den datarekin, baizik eta gauza edo objektu estatusagatik. Xabier Arregi

Joan den mendearen hasierako artearen historiaren tradizio alemaniar handitik hartuko dugu gure lehenengo **adibidea**. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Adibideak **adibide**-balio, eta adierazgarritasun natural baten eredu gisa balioko digu. Josu Zabaleta

Gizonek, denbora askoren buruan eta **adibide** zerrenda luze baten arabera, oro har, ez oso komenigarritzat daukaten guztia bihurtzen da oker, gaizto, inmoral. Xabier Olarra

Ezagun zaigun **adibide** -multzo bat aipa daiteke erakusteko egiptologo ospetsu honek zerturiko proposizioa benetan aspaldiko egia historikoa dela. Jon Alonsoren *Idiaren eraman handia* saiakerak (1995) horien **adibide** -sorta ona eskaini zigun, eta orduz geroztik, jakina denez, nominak handituz jarraitu du. Iñaki Mendiguren

Ondoren, indar berriek erakunde zaharretan izandako eraginaren **adibide** -sail bat dator, lehenengo taldean Mendebaldeko Gizarte modernoan diharduten bi indar berri handien eraginak daudelarik: [...]. Iñaki Mendiguren

Garrantzizkoa den **adibide** kopuru handi batean, itxurapen bikoitzari itxuratutako perpausaren adiera bikoitza dagokio (egiturazko homonimia). Itziar Laka

Gure **adibide** -tipoak, esku artean dugun gaiaren barnean zuzen-zuzenean sartzen diren gogoeta asko iradokitzen ditu: [...]. Isabel Arrigain

Adibide segida hau amaitzeko, protesia eta aferesia -hau da, oihartzun luzatua eta murriztua- elkarren ondotik kateatzen dituen poema dakargu. Iñaki Arranz

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Emakume hori madarikazio-**adibide** izango da herritarrentzat. Elizen arteko biblia

Bere azken egunetara hurbildu zelarik -argi iragankorraren lekua betiko argiak hartzen duenean-, bertute-**adibide** batez erakutsi zuen ez zuela munduarekin inolako zerikusirik. Askoren artean

Iraganeko zigor-**adibideak** . Elizen arteko biblia

Ordenamendu **adibide** bat hau litzateke INA amaitzen diren hitzekin osatua: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Porrot-giroak edota, porrot positiboa ez bada ere, hutsalkeriak inguratzen ditu aztertu ditugun arkaismo-**adibide** ia guztiak; eta arrazoia ez da urruti bilatu behar. Iñaki Mendiguren

Baina, baita kasu honetan ere, kontra-**adibidea** eman daiteke. Xabier Arregi

6 ***adibidez*** adibide gisa. ik **adib.**.

Adibidez , badakigu Atenasko Partenoia K.a. bosgarren mendean eraiki zela, Hadrianoren mausoleoa K.o. bigarren mendean, eta Konstantinoplako Santa Sofia eliza K.o. seigarren mendean. Iñaki Mendiguren

Nik, **adibidez** , ez dakit Namibiako berri batere, ezta Afrika behealde horretan seguru-seguru non dagoen ere (mapan), baina dozena bat tekla sakatzea aski, behar dudan guztia jakin eta hango errealitatearen muinaz jabetzeko. Iñaki Segurola

Hara **adibidez** ondoko pasartea: seigarren Biltzar Nagusia du ETAk. Markos Zapiain

Zientzia-teoria guztiak behaketa-kopuru mugatu batean oinarritzen dira; behatutako gertakariok bilbatu eta gertakari berriak aurresatea da euren helburua, horretarako (fisikan **adibidez**) "masa", edo "elektroi" bezalako izaki hipotetikoen araberako arau orokorrak sortuaz. Askoren artean

Hain da handia egun horren santutasuna, ezen Jainkoak jurisdikzio badaezpadako eta exkaxa duen lekuetan ere, **adibidez** , itsasoratzen (eta bertan hondoratzen) direnen artean, zorrozki errespetatua den. Xabier Olarra

Egiaz, batzuk, alkatxofak **adibidez** -platerean arruntak-, jarioak iruditu zitzaizkidan, exotikoak. Ramon Saizarbitoria

Demagun, **adibidez** , badauzkagula hiru zenbaki eta laugarren bat nahi dugula ezagutu, hirugarrenari izanen zaiona bigarrena lehenari buruz den hein berean. Piarres Xarriton

Sinapsiak, **adibidez** , ez dira errele soilak; eginkizun eraginkorra dute, "kitzikatzaile" baitira batzuk, eta "inhibitzaile" besteak. Josu Zabaleta

Espazioa eta denbora, **adibidez** , Kanten aurretik, edo objektu absolutuak ziren, hots, espazio eta denbora absolutuak ziren, edo gauzen arteko harremanak ziren, egoera, urrunera eta antzekoen gisa. Ibon Uribarri

Baliabideak behar dira, hori ezin du inork ere ukatu, baliabideak irakaskuntza eta ikerkuntza egokiagoak egiteko, **adibidez** , baina horrekin batera halako erakunde arkitektura bat ere garatu beharko genuke denon artean, kalitate hori segurtatuko lukeena aldi berean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Toki hau ez da ideia horiek finkatzeko leku egokia; baina garbi dago, **adibidez** , arazo linguistikoek duten garrantzia testuak erabili behar dituztenentzat. Isabel Arrigain

Berehala ikusten zuen, **adibidez** , triangelu baten hipotenusa beste bi aldeen batura baino txikiagoa zela: beraz, haren oroimen semantiko deritzona nahiko osorik zegoen. Xabier Olarra

Ez ditut gogoko, **adibidez** , San Agustinen bestelako hitzak, bera horren errespetagarria izan arren. Jenaro Garate

Ez zegoen indiarrik, **adibidez** , Britainiar Inperioaren hilezkortasuna desiratzen edo iragartzen zuenik. Iñaki Mendiguren

"Razional" terminoa erabili dugu, **adibidez** , "arrazional" hitzaren kaltean. Askoren artean

Badira oraindik ere erregimen komunista batzuk, Txinakoa **adibidez** . Koro Navarro

Film batzuek hobeto "kudeatzen" dute emozioen zikloa, ikusleari, narrazio-egitura ongi menderatuz (identifikazio-ikuspuntuak aldatuz, **adibidez**). Josu Zabaleta

Bere *Languages of art* (1968-76) liburuan zehazki dio edozer gauzak (edozein irudik, **adibidez**) irudika dezakeela edozein erreferente, hala erabakitzen baldin bada. Josu Zabaleta

Azkenik, adimen mailako jazoerez eta beroriei darizkien iritzi eta doktrinez ere esan da, **adibidez** : [...]. Xabier Kintana

Horrelako asko ezagutu izan ditut, Yolo **adibidez** . Pako Aristi

7 ***aurkako adibide*** *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Logikan, **aurkako adibidea** multzo bateko elementu guztietarako betetzen den proposizio orokor bat ezeztatzen duen egitate bat da. ETC-entziklopedia

Allaisen paradoxa itxarondako baliagarritasunaren teoriako independentziaren axioma kolokan jartzen duen **aurkako adibide** bat da. ETC-entziklopedia

Bereziki, matematikan erabiltzen dira, formalki frogatu ez diren baina **aurkako adibiderik** ez duten proposizioak izendatzeko. ETC-entziklopedia

Hala ere, **aurkako adibidea** ere ezagutu du SEIPekoak: "Alegia, aldarte txarrean daudela Rammstein entzun eta lasaitzen direnak. ETC-prentsa

Txina jartzen du **aurkako adibide** gisa. ETC-literatura, saiakera

Aurkako adibidea : Txina, mendeetan zehar Erdiko Erresuma, etsairik gabe bere baitan itxita, eta askatasun arrastorik gabe (Refl. ETC-literatura, saiakera

Baina **aurkako adibideak** ere ugari dira. ETC-literatura, saiakera

Hirugarrena, parte-hartzeari dagokio: prozesu honetan nolabaiteko malgutasuna ikusi dugu, **aurkako adibideak** badauden arren. ETC-literatura, saiakera

Jakina, badira **aurkako adibideak** ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adibide adierazgarria (4); **adibide aipatu** (6); **adibide argi** (10); **adibide argi bat** (4); **adibide argia** (36); **adibide argia da** (16); **adibide argiak** (9); **adibide argiena** (6); **adibide argigarri** (4); **adibide aski** (6); **adibide asko** (20); **adibide asko daude** (4); **adibide bakarra** (10); **adibide bat** (320); **adibide bat baino** (10); **adibide bat besterik** (12); **adibide bat da** (19); **adibide bat dela** (5); **adibide bat eman** (6); **adibide bat emateko** (12); **adibide bat ere** (7); **adibide bat jarri** (12); **adibide bat jarriko** (11); **adibide bat jartzeagatik** (5); **adibide bat jartzearren** (22); **adibide batekin** (12); **adibide baten** (5); **adibide baterako** (6); **adibide batzu** (4); **adibide batzuk** (66); **adibide batzuk ere** (4); **adibide bezala** (11); **adibide bi** (8); **adibide bikaina** (9); **adibide bikaina da** (4); **adibide bila** (6); **adibide da** (38); **adibide daude** (5); **adibide dira** (21); **adibide dugu** (7); **adibide ederra** (7); **adibide egokia** (8); **adibide eman** (6); **adibide ematen** (6); **adibide ematen da** (4); **adibide erraz** (4); **adibide esanguratsua** (4); **adibide esanguratsua da** (4); **adibide eta** (9); **adibide ezaguna** (5); **adibide ezin** (7); **adibide garbi** (4); **adibide garbia** (33); **adibide garbia da** (18); **adibide garbiena** (18); **adibide gehiago** (12); **adibide gisa** (160); **adibide gisa jarri** (9); **adibide hau** (9); **adibide hauek** (7); **adibide hauetan** (6); **adibide honetan** (9); **adibide honi** (4); **adibide hori** (6); **adibide horiek** (11); **adibide horrek** (4); **adibide horretan** (4); **adibide izan** (15); **adibide izan zen** (7); **adibide jarri** (15); **adibide jarri zituen** (8); **adibide klasiko** (4); **adibide klasikoa** (11); **adibide legez** (4); **adibide moduan** (28); **adibide modura** (14); **adibide nabarmena** (6); **adibide on** (6); **adibide on bat** (5); **adibide ona** (16); **adibide ona da** (13); **adibide onak** (4); **adibide paregabea** (4); **adibide praktiko** (7); **adibide praktikoa** (6); **adibide sinple** (5); **adibide sinple bat** (4); **adibide txiki** (4); **adibide ugari** (11); **adibide zehatz** (6)

adina adibide (5); **aipatu zuen adibide** (4); **artearen adibide** (4); **baina adibide** (8); **baten adibide** (19); **beste adibide** (126); **beste adibide bat** (87); **beste adibide batzuk** (12); **beste hainbat adibide** (6); **bi adibide** (41); **bi adibide jarri** (4); **da adibide** (20); **da adibide garbiena** (6); **da horren adibide** (26); **den adibide** (4); **dezagun adibide** (12); **dira horren adibide** (21); **ditu adibide** (6); **ditzagun adibide** (5); **du adibide** (16); **du adibide gisa** (6); **duen adibide** (7); **duen adibide bat** (5); **dugu adibide** (6); **dugu horren adibide** (4); **dut adibide** (5); **ere adibide** (5); **eta adibide** (32); **eta adibide bat** (5); **eta adibide gisa** (5); **eta hainbat adibide** (4); **eta horren adibide** (18); **ez da adibide** (5); **hainbat adibide** (44); **hainbat adibide daude** (4); **hainbat adibide jarri** (5); **hamaika adibide** (6); **har dezagun adibide** (5); **hemen adibide** (18); **hemen adibide bat** (5); **hemen adibide batzuk** (9); **hiru adibide** (6); **hona adibide** (4); **hona beste adibide** (4); **hona hemen adibide** (14); **honako adibide** (6); **honen adibide** (22); **honen adibide bat** (5); **honen adibide klasikoa** (4); **horien adibide** (6); **horren adibide** (305); **horren adibide argia** (18); **horren adibide bat** (16); **horren adibide da** (27); **horren adibide dira** (13); **horren adibide dugu** (4); **horren adibide garbia** (19); **horren adibide garbiena** (8); **horren adibide gisa** (25); **horren adibide izan** (4); **horren adibide ona** (4); **horretako adibide** (4); **jar dezagun adibide** (4); **jarri ditu adibide** (4); **jarri du adibide** (7); **jarri zituen adibide** (10); **jarri zuen adibide** (12); **mila adibide** (5); **nahi adina adibide** (5); **oso adibide** (4); **zenbait adibide** (16); **zituen adibide** (14); **zituen adibide gisa** (7); **zituen horren adibide** (6); **zuen adibide** (21); **zuen adibide gisa** (14); **zuen horren adibide** (5)

adibidea aipatu (6); **adibidea aipatzen** (4); **adibidea da** (35); **adibidea dela** (5); **adibidea ekarri** (5); **adibidea eman** (8); **adibidea eman zuen** (4); **adibidea ere** (4); **adibidea hartu** (6); **adibidea izan** (7); **adibidea jarri** (11); **adibidea jarri zuen** (4); **adibidea jarriko** (5); **adibidea jartzen** (4); **adibideak asko** (4); **adibideak dira** (9); **adibideak eman** (7); **adibideak ematen** (5); **adibideak erabili** (4); **adibideak ere** (12); **adibideak ere eman** (4); **adibideak ez** (10); **adibideak ez dira** (5); **adibideak jarri** (4); **adibideak ugariak** (4); **adibideak ugariak dira** (4); **adibideek erakusten** (5); **adibideek ez** (4); **adibideen bitartez** (4); **adibideren bat** (6); **adibiderik argiena** (20);

adibiderik garbiena (14); **adibiderik onena** (8); **adibidetzat aipatu** (4); **adibidetzat hartu** (8); **adibidetzat jarri** (14); **adibidetzat jarri zituen** (5); **adibidetzat jarri zuen** (5); **adibidez bere** (4); **adibidez edo** (4); **adibidez ez** (7); **aipatu zuen adibidetzat** (4); **azken adibidea** (7); **bada adibidez** (5); **baita adibidez** (4); **bat adibidez** (6); **batek adibidez** (8); **baten adibidea** (10); **beste adibiderik** (4); **bigarren adibidea** (5); **da adibidea** (5); **da adibiderik** (5); **da adibidez** (5); **da horren adibidea** (7); **da horren adibiderik** (4); **den adibidea** (4); **dira horren adibidea** (4); **ditu adibidetzat** (5); **du adibidetzat** (8); **en adibidez** (6); **ereduaren adibidea** (6); **eta adibideak** (10); **eta adibidetzat** (5); **eta adibidez** (8); **eta horren adibiderik** (4); **eta horren adibidetzat** (4); **hala adibidez** (4); **honen adibidea** (7); **honen adibideak** (5); **hori adibidez** (4); **horrelako adibideak** (5); **horren adibidea** (30); **horren adibidea da** (9); **horren adibideak** (9); **horren adibiderik** (30); **horren adibiderik argiena** (8); **horren adibiderik garbiena** (9); **horren adibidetzat** (23); **horren adibidetzat jarri** (7); **jarri du adibidetzat** (4); **jarri zituen adibidetzat** (11); **jarri zuen adibidetzat** (11); **kasuan adibidez** (11); **lehen adibidea** (5); **lehenengo adibidea** (6); **zituen adibidetzat** (13); **zuen adibidetzat** (15)

---

adibidetegi *iz* adibideen multzoa.

Ikus ikur fonetikoak atala eta Hots-**adibidetegia** eranskineko transkripzioikurrak. Lourdes Oñederra

---

adiera **1** *iz* esanahia.

Orotara 42.000 hitz sarrera daude, 55.000 **adiera** eta 1.000 adibide. Berria - Euskal Herria

Lexikoa, **adierak**, hizkuntza batetik besterako parekotasunak, aldeak, ñabardurak, zehaztapenak... Berria - Kultura

Izenaren **adiera** edo erranahia: "élection". Herria

Bi dira, izan ere, gaitz hitzari ematen dizkiogun **adierak**: bata, norbaitek gaizkia egin duela diogunean; bestea, "norbaitek gaitza jasan duela" baieztatzen dugunean. Imanol Unzurrunzaga

Hiztegian hiru **adiera** ditu enkoniadura hitzak: lehena, tristura; bigarrena, ezinikusia edo gorrotoa; eta hirugarrena, idorreria. Berria - Kultura

Hitz horrek "koskobiloak" esan nahi du, baina kale hizkeran "txoro", "tuntun" eta gisako **adierak** ditu. Berria - Mundua

Hitz bakoitzak bere **adiera** behar du. Xabier Kintana

Ingelesez, home esapideak **adiera** bi ditu: "norberaren etxea, bizilekua" batetik, eta (108) adibidean hartzen duen "etxera" **adiera** ere bai. Itziar Laka

Horrek esan nahi du, *laiko* hitzak, estatus eklesiastikoaz aparte, bazuela beste **adiera** bat ere, kultur mailakoa: alegia, eskolarik ez zutenak, irakurtzen ez zekitenak. Askoren artean

Alegoria baten **adiera** azaldu dudala aurkitzen baldin baduzu. Xabier Kintana

Su-eten batek "itxaropenari ateak" irekiko lizkiokeela esan zuen, baina su-etena kontzeptuari **adiera** zabalagoa eman zion orduan: "ETAren su-etena, baina baita epaileen su-etena ere, ulertzen ez duten hizkuntzatan argitaratzen diren egunkariak ixten dituzten epaileen su-etena hain zuzen, eta baita torturatu egiten dutenen su-etena ere". Berria - Euskal Herria

Riso hitzaren bi **adierak** -alaitasuna eta arroza- baliatu zituen Giuseppe de Santis zine-zuzendariak ere bere film ezagunenari *Riso amaro* izena eman zionean (arroza / irribarre garratza). Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Itzulpen horrek ez du ematen kontzeptu homerikoen **adiera** osoa. Askoren artean

Kaleidoskopio batean bezala multiplikatzen nituela berez **adiera** bakarrekoak ziren eszenak, interpretazioak, hitzak. Anjel Lertxundi

Globulu gorriak ez dira zelulak, hitzaren **adiera** arruntean, ez baitute nukleorik, ez material genetikorik. Irene Aldasoro

Bertan diharduten langileak ez dira ostalaritzako profesionalak, **adiera** klasikoan, langabezian egokitutako pertsonak baizik. Edorta Agirre

Alegoriaren kanpoko adierak ez duela deus balio, eta horren kanpoko azalaren barruan gorderiko **adiera** ezkutua, bere etxe ilun eta altzariz betean altiste bat galdu zuenarekin konparatzen dutela. Xabier Kintana

Egilearen Esanak ez dira guztiak beren kanpoko esanguran hartu, baina batzuek hitzez hitzeko **adiera** eta beste batzuek, irudiak izanik, **adiera** figuratua daukate. Xabier Kintana

Orotasuna, ordea, **adiera** enpirikoan beti alderagarria besterik ez da. Ibon Uribarri

Zelanok hemen propositum hitza dakar, maiz erabilia eta **adiera** desberdinekin: asmoa, egitasmoa, proiektua. Askoren artean

Perpaus hauek oso **adiera** ezberdinak dauzkate, nahiz itxurapen bera duten osagai-egituran. Itziar Laka

Ez dago bizi-kalitatearen definizio bateratu bat, historian zehar **adiera** ezberdinak hartu baititu. Berria - Gaiak

Horretara bada, hibbît-aditzak, Jainkoari buruz erabiltzen denean, beti **adiera** metaforiko hori dauka. Xabier Kintana

Hutsa deitzen diot (**adiera** transzendentalean) sentsazioari dagokion ezer aurkitzen ez diodan errepresentazio orori. Ibon Uribarri

Erlatibismo hori, azkenik, ikuspegi sozialetik begiratuta ere berdin azalduko da, distributio kontzeptuaren bigarren **adierak** adierazten zuen bezala. Santiago Iruretagoiena

Ikusazu bada nola esaera hori ezin hobeki doakion alegoria zuzenari, "aurpegi bi" hau da, kanpoko eta barruko **adierak**, dauzkan esaerak bere azala zilarra bezain ederra ukan behar duelako. Xabier Kintana

Haien barneko **adierak** probetxuzko doktrina dauka egia bere osoan helburu duten sineskerentzat. Xabier Kintana

Berezko eta metaforazko **adiera**. Josu Zabaleta

3 adimena, ezaguera.

Entzuleek, Vienatik ihesi etorritakoak izaki, Danubioko urak ikusten zituzten goitik behera ibilian eta **adiera** galtzen zitzaien beraiei baso ilun usaintsuren batean. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adiera bat (14); **adiera bat baino** (6); **adiera bat ere** (4); **adiera batean** (4); **adiera berean** (7); **adiera bikoitza** (4); **adiera ditu** (4); **adiera enpirikoan** (4); **adiera ere** (5); **adiera eta** (6); **adiera ez** (3); **adiera ezberdinak** (4); **adiera figuratuan** (3); **adiera hau** (4); **adiera hertsian** (3); **adiera honetan** (12); **adiera hori** (3); **adiera horretan** (10); **adiera metaforiko** (7); **adiera metaforiko honetan** (3); **adiera negatiboan** (3); **adiera transzendentalean** (9); **adiera zabalean** (5); **adierak ez** (3); **adierak ez duela** (3); **adieran erabiltzen** (3); **adieran ere** (3); **adieran hartzen** (4); **adieraren arabera** (4); **azken adiera** (9); **azken adiera horretan** (3); **bere adiera** (5); **berorren adierak** (3); **beste adiera** (10); **beste adiera bat** (7); **bi adiera** (4); **bi adiera ditu** (3); **bi adierak** (4); **bi adieretan** (3); **da adiera** (3); **duen adiera** (3); **eta adiera** (14); **eta adiera horretan** (3); **eta metaforazko adiera** (3); **hirugarren adiera** (3); **hitzaren adiera** (11); **hitzez hitzezko adieran** (3); **hitzezko adieran** (3); **honen adiera** (3); **horren adiera** (4); **lehen adieran** (7); **metaforazko adiera** (4)

---

adierabakar *izond* adiera bakarra duena

Subiranotasun **adierabakarren** arteko talka gisa planteatzen bada, horrek ez du konponbiderik. Berria - Euskal Herria

---

adierabide *iz* adierazpidea.

ADITZ GUTXI IZANGO DIRA EUSKARA GUREAN, itzuli honek beste **adierabide** dituenik. Pello Zabala

---

adieraezin ik **adierazezin**.

---

adierakide *izond* adiera bera duena.

Ikasle batek 'bekereka' ardiaren **adierakide** zela esan zuen. Berria - Euskal Herria

---

adierazbide ik **adierazpide**.

---

adierazezin *(orobat **adieraezin** g.er. eta **adieraziezin**) izond* ezin adierazizkoa.

Arrazaren haria berreskuratzen ari nintzelakoan, eta ni izango naiz azkenean hari hori galduko duena, arbasoen espiritu **adierazezina** hitzetan jartzen saiatu eta horrenbestez hondatuko duena. Xabier Mendiguren Elizegi

Beste mundu bateko kontua zen, **adierazezina**, eta, beraz, hobe da isiltzea. Pello Lizarralde

Bere baitako zokoren batean halako estutasun etengabe bat sumatu zuen, **adierazezina**, aurreko gaueko gogoeta garratzen lorratza. Lopez de Arana

. Substantzia hau **adierazezina** dela eta gizakiak gizakiari ezin azalduzkoa. Imanol Unzurrunzaga

Argi agertzen da begirale zuzenen aurrean mugimendu paregabe, **adierazezin** eta, uler baledi, egonkor honek Jakituriak prestaturiko gauzei laguntza eskaintzen diela leunkiro. Imanol Unzurrunzaga

Beldurraz gain, bazuen besterik ere osasun aldetik: sakonagoko nahasmendu ia **adierazezin** bat sentitzen zuen, eta ikara, eta sentipen horiek, hain zuzen ere, margolanean kolorea erabiltzen saiatu zen hilabetean jo zioten gailurra. Xabier Olarra

---

adierazgabe *izond* ezer adierazten ez duena.

Antonio Musu-tristeren aurpegi **adierazgabea** baizik ez nuen aurkitu, orori soraio iduri eta orori adi, belarri-luze alaena. Aingeru Epaltza

Abuztuko igande arratsalde horretan bere itxura freskoari zerion gogobetetasun alaiak lekutan uzten zuen bere ohiko izaera itzaltsu eta **adierazgabea**. Aingeru Epaltza

---

adierazgabetasun *iz* adierazgabea denaren nolakotasuna.

Antonio Musu-tristeren **adierazgabetasun** geldoa guregan finkatua zegoen garagardoaren eta martiniaren zaporeek bat egin zutenean gure ahoetan. Aingeru Epaltza

---

adierazgai *iz* adierazteko gaia.

Argiro erakusten digute mezua bitartekoetan ere egon daitekeela, adierazpidea **adierazgaia** ere badela, eta, horretarako, ezabatu ez ezik inoiz baino ikusgarriago gailentzen da hizkuntzaren ezkutuko aldea. Iñaki Arranz

---

adierazgailu *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi) iz* adierazten duen tresna. ik **adierazle**.

Kamioi militarreko kabina, **adierazgailu** mordoarekin hornitua -gehienak ez zebiltzan-, altu samar zegoenez, Kak etxe batzuen barreneko aldea ikus zezakeen gortina zabaldu bakar batzuen artetik. ETC-literatura, saiakera

Beste **adierazgailu** batzuk izan litezke ere Piscis, arraina, Pistrix, balea, Viscus eta Viscerus, barneko errainak. ETC-literatura, saiakera

Esfera ibilge batean orratzen norabidean **adierazgailu** mugigarriek giza edo gizarte arauketaren terminoetan har ditzaketen posizioen translazioa. ETC-literatura, saiakera

Bertako aparkalekutik, zutoin **adierazgailuak** marra hori eta berdeekin agertzen digun bidea jarraituko dugu. ETC-prentsa

Bizkaiko BI-24 eta BI-28 ibilbide laburren **adierazgailuak** topatu ditugu bidegurutzean. ETC-prentsa

Aparailuak USB 2.0. interfaza, LED **adierazgailua** eta ohiko softwarea ditu, segurtasun kopiak egitea eta datuak sinkronizatzea ahalbidetuko dueana. ETC-prentsa

"Desastre bat izan zen", Lakaren arabera, autonomia txikia zuelako eta ikusleari **adierazgailu** txiki bat baino ez ziolako eskaintzen. ETC-prentsa

Ematen zuen izenek " **adierazgailu** " gisa jokatzen zutela, eta haiek gabe ezin zuela informazio semantikoa eskuratu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Proiektualdi bakoitzeko, zerbitzu-**adierazgailu** bat jartzen da, AASHO entseguaren funtsezko oinarrietako bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

adierazgaitz **1** *izond* adierazten zaila dena, ia adierazezina.

Baina -nire barruan hondogabeko indar magiko bezalako batek pentsatu gabe bultzatu ninduen beste lagunek gogotsu eta alai onartutako proposamena egitera-, bat-batean irrika **adierazgaitz** bat izan nuen, han berebiziko zerbait etorkizun banu bezala. Eduardo Matauko

Berriro aditu nuen haren lurrina, eta lurrin erosi haren azpian beste bat zegoen, ilunago, basago, garratzagoa beharbada, baina, zentzu **adierazgaitz** batean, askoz ere eztiagoa. Alberto Ladron Arana

Eguerdian dendan izandako elkarrizketa gogoratzeak halako ondoez **adierazgaitza** ekarri zion bihotzera. Karlos Zabala

2 (izen gisa)

Behingoagatik bada ere, ez zuten **adierazgaitza** adierazten ibili beharko. Hasier Etxeberria

---

adierazgarri **1** *iz* zerbait adierazten duen gauza.

Bilakaera fonetikoen erregulartasunetik ateratako **adierazgarriak**. Isabel Arrigain

Pribilegioak hain garrantzitsuak zirenean estatusaren **adierazgarri** bezala. Askoren artean

Frantziskok maitasun berezia izan zion beti: horren **adierazgarri** bedeinkapen hau eta bertan anaiei egiten dizkien gomendioak. Askoren artean

"Zeloteen" erreakzio totalitarioa, bere **adierazgarri** tipikoak Sinesle Zaharren sekta fanatikoan aurkitu zituena. Iñaki Mendiguren

Mundu sinikoaren kultur erdiguneko herriek berezko joera zuten eurak **adierazgarri** nagusi zituen kultura bat idolatratzeko. Iñaki Mendiguren

Hotsei emandako izenak, askotan, oso **adierazgarri** anbiguoak gertatzen dira. Isabel Arrigain

Odolaren presioak eragindako gorabehera hori da zure asalduraren **adierazgarri** bakarra. Rafa Egiguren

Testu batean eta bestean, autore batengan eta bestearengan gaiak, narrazio-prozedurak eta estiloa errepikatzea da horren **adierazgarri** nabarmenena. Askoren artean

Lepo argal-argal eta samurra eta neskatxa-beso orobat argalak ziren haren adinaren **adierazgarri** bakarrak. Jose Morales

Daramagun martxa okerraren **adierazgarri** zuzena da, bestela ere, iragarki horrena: [...]. Joxerra Garzia

Ez dituzu, ez, horiek, ez eta begitiko ibai naroa, ez eta betartearen abaildura agerikoa ere, saminaren forma, eite, agerpen guztiok batera ere, ene barrenaren **adierazgarri** zintzo. Juan Garzia

Ez dakit, igual arrazoi du eta pentsamolde zaharkitu baten **adierazgarri** petoa baizik ez naiz, batzuetan aurpegiratzen didan bezala. Jon Alonso

Nire abortatzeko erabakia sakrifizio bat edo "maitasun-**adierazgarri"** bat bezala onartzea nahi nuen beharbada, nik neure nahiaren eta interesen arabera erabakitako zerbait bazen ere. Joseba Urteaga

2 (**-**en deklinabide atzizkiaren eskuinean izan aditzaz)

Iruzurraren erantzun hura ere egoera berriaren **adierazgarri zen**, Tirabira horren **adierazgarri dira** lehen garaietako lekukoen testigantzak. Anjel Lertxundi

Hiru inkesta horietan agertu diren zenbakiak, errealitatearen, baita euskarari buruzko mentalitateen **adierazgarri dira**, beraz ondoko kroniketan xehekiago aipatuko ditugu. Herria

Eragile politiko gehienak bat etorri ziren esatean gainditurik beharko lukeen aro baten **adierazgarri dela** atzo hasitako epaiketa. Berria - Harian

Berak baino itxura pobreagoa zuenen bat ikusten bazuen, agiraka egiten zion berehala bere buruari eta haren antzeko izatera grinatzen zen, espirituzko nobleziaren **adierazgarri den** pobretasunaren aldeko lehian garaitua izateko beldurrez bezala. Askoren artean

Ekintza nazkagarria, bistan da, ondasun-lapurretak gizonengan sortzen duen nardaren **adierazgarri den** esaera baten iturria. Juan Martin Elexpuru

Ggorputzeko distira harrigarri hura barne-argitasun miragarriaren **adierazgarri balitz** bezala. Askoren artean

Bi zenbakiak **dira** erritmo guztien bilgune eta osatoki, osotasun konpleto eta kunplituenaren **adierazgarri**. Pello Zabala

3 (**-**en deklinabide atzizkiaren eskuinean izan aditzik gabe)

Horren **adierazgarri**, larunbat gauean egin zen poesia emanaldiaren ingurua: Potsdamer Platz. Edorta Jimenez

Aurreko lanaren aldean, labirintoen konplexutasuna zuten, eta taxu obsesibo eta tormentatu bat, berak bizi zuen kinka larriaren **adierazgarri** inondik ere, modu sinbolikoan. Xabier Olarra

Aurreko lanaren aldean, labirintoen konplexutasuna zuten, eta taxu obsesibo eta tormentatu bat, berak bizi zuen kinka larriaren **adierazgarri** inondik ere, modu sinbolikoan. Xabier Olarra

Aurpegi alaia bihotz onaren **adierazgarri**; gizaki kopetilunak gogoeta tristeak islatzen. ez genion elkarri hitz egin, beste bat baitzen une hartan gure odolaren mintzoa, begiak begietan malko batzuk isurtzen genituela, gure poz neurrigabearen **adierazgarri**. Elizen arteko biblia

Gure aberriaren eta Italiaren arteko harreman adiskidetsuen **adierazgarri**, italiar kulturaren astea antolatu zuen udalak. Alberto Ladron Arana

Prest egongo delarik, eskuzabaltasunaren **adierazgarri** igo da, eta ez zimurkeriaz egindako emaitza. Elizen arteko biblia

Gizonezko juduek buruan jantzita ibiltzen duten kasketa edo kalota, Jainkoarenganako errespetuaren **adierazgarri**. Koro Navarro

4 (izenondo gisa) egoki adierazten duena. ik **adierazkor**.

Ondo hornitutako ikerketa zerbitzuei esker, erakunde publiko zein pribatuek emakumeon diskriminazioaren datu **adierazgarriak** plazaratuko dituzte. Berria - Euskal Herria

Begirada **adierazgarri** batez ikertu gaitu orduan ostalariak goitik behera. Txillardegi

Egileak forma zirraragarri batean adierazten duen irudia da guretzat irudi **adierazgarria**. Josu Zabaleta

Joanesi esku-keinu **adierazgarri** batez aulki dotore batean esertzeko aholkatu zion. Felipe Juaristi

Bataiatzerakoan beren haurrei Itun Zaharreko izenak, batere teutonikoak ez zirenak, jartzeko praktika hildako mundu bat piztu nahi izateko mania honen sintoma **adierazgarria** zen. Iñaki Mendiguren

Espainiako Gorte Nagusiek Kode Zibila aldatzeko ostegunean onartuko duten legea aurrerapen **adierazgarria** da eurentzat guztientzat. Berria - Harian

1978an etorri zen hots bustiak idazteko araua: bustidura **adierazgarriak** idazterakoan islatzea erabaki zen, baina ez i bokalak eragindakoak. Koldo Zuazo

Harryri begiratu **adierazgarri** bat eginez, lasai-lasai langaren kontra jarri zen. Iñaki Mendiguren

Isilune **adierazgarri** batek jarraitu zuen. Fernando Morillo

Kasuen kopuru **adierazgarri** batean, pitzadurak zelula-barrunbeetan amaitzen zirela ikusi zen. Irene Aldasoro

Oihu **adierazgarri** zehatz honekin amaitu baitzuen bere azkeneko hitzaldia: "¡Vivan los fueros vascongados en medio de la integridad nacional!". Txillardegi

Irakasleek hitz politak esan bai, baina gero erakutsi duten jarrera oso **adierazgarria** da: bi irakasle baino ez dira etorri". Berria - Harian

Adierazgarria oso. Berria - Kirola

Argazkiaren *arkhé*-ari buruz dudan ezagutzari esker [...], gai naiz denbora hori irakurtzeko, haren konnotazio emozionalak sentitzeko eta, areago, argazki oso **adierazgarri** batzuk ikusirik, konnotazio horiek berriro bizi izateko. Josu Zabaleta

Adierazpen horren izenburua aski **adierazgarria** zen: *The Moment of Truth for America*. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hainbat datu jaso dituzte liburuan, baina bat bereziki **adierazgarria**: Europan, beste edozein gaitzek baino heriotza gehiago eragiten dute urtean arnasa hartzeko arazoek. Berria - Gaiak

"Orubezale" hitzak "orobeherazale" hitzarekin duen antza problematikoki **adierazgarria** da, baina dudarik gabe iradokitzailea. Xabier Olarra

Prietoren esanetan, akordioa "politikoki **adierazgarria**" da eta Arabako erakundetan garai berri baterako ateak zabaltzen ditu, PPk bai Foru Aldundian zein Gasteizko Udalean gutxiengoa duela gogoan hartuta. Berria - Euskal Herria

Nahiz eta hilabete bakoitzaren hasieran gehienak errepasatuko ditugun, torizu zerrenda bitxi bezain **adierazgarri** hau, uztalanak eta mahats-biltzearenak amaitu orduko, berriro bueltan hasten zena: [...]. Pello Zabala

Obra **adierazgarria** bere forma-lanaren freskotasunagatik harridura eragiten duena izaten da ia beti. Josu Zabaleta

Oro har eta erraz esanda, palatalizazio **adierazgarriak**, [...], hots horzkari eta hobikariak palatalizatzen ditu. Lourdes Oñederra

Estatu Batuetan, azkenik, aurrekontu-politikak hedakortasun pixka bat galdu zuen, baina ez barneeskariaren bolumena modu **adierazgarrian** moteltzeko adina. Koro Navarro

Elexoste Ikastegiko talka ezin **adierazgarriago** hartan gertatutakoa. Txillardegi

Zeruaren aurrean bere egitasmoa burutzeko, ez zuen aurkitu toki **adierazgarriagorik** hilerri bat baino. Juan Garzia

Argigarriak baino gehiago, **adierazgarriak** dira. Pello Salaburu

Maitasunaz aritzeko, gainera, oso modu plastiko eta **adierazgarria** erabili zuen. Berria - Kultura

"Gramatikala" kontzeptua ezin da semantikako "esanguratsua" edo **"adierazgarria"** kontzeptuekin berdindu. Itziar Laka

Obra gordailutik aukeratutako aleekin "Urangak eginiko lan oparoaren erakusketa txikia baina **adierazgarria**" antolatu dutela azaldu zuten atzo museoko arduradunek. Berria - Kultura

Euskara zuzenagoa, aberatsagoa, berezkoagoa eta **adierazgarriagoa** erabiltzea. Koldo Zuazo

Espainiako Gobernuko presidentearen hitzak baino **adierazgarriagoak** izaten ari da, hala ere, PPren eta bere inguruaren erantzun ezin bortitzagoa. Berria - Euskal Herria

· **Adierazgarria** da Alemaniak eta Frantziak %9,2 inguruko langabezia dutela. Berria - Ekonomia

Erantzuna, zehatza bezain **adierazgarria**, Alain Lamassoure Hautetsien Kontseiluko buruak emanen dio: [...]. Berria - Ekonomia

Topaketaren izena, **adierazgarria**: "PIRINEOAK/PIRINEUS". Herria

Aitorpen horietatik ezein ez da faltsua; hala azpimarkatu izanak bilakatzen ditu **adierazgarri**. Juan Garzia

Adierazgarri gerta daiteke, ikuspegi horretarik, amaren urtebetetzean izan zuten disputa eta eztabaida, orain berean jakinaraziko dizudana. Joan Mari Irigoien

5 (adizlagun gisa)

Leunki eta ezinago **adierazgarri** mugitzen ziren aldera begiratzea saihestuz. Jose Morales

6 ***adierazgarri izan***

Negarra noski, irria bezalaxe, jendearen kultura eta izakeraren **adierazgarri da**. Patziku Perurena

Zalantza oro adimen gainbeheraren **adierazgarri dun** gazteagan, gorputz ahultasunaren seinale zaharragan. Antton Olano

Kezka horren **adierazgarri da** 1970eko hamarraldiaren hasieran Estatu Batuetako kapitalen gehiegizko irteeraren aurrean Mendebaldeko Alemanian izan zen erreakzioa. Koro Navarro

Urte bereko obra giltzarri bion parekatze batetik (antzak eta aldeak, biak zaizkit **adierazgarri**) etekin galanta atera litekeelakoan nago, Ekar dezadan hona haren historia, giro estu haren **adierazgarri izanen** delakoan. Juan Garzia

Norbaitekin oheratzeak adiskidetasunaren **adierazgarri izan** beharko luke. Karlos Zabala

Aita santuaren azken mementoko barkamenaren **adierazgarri** gazteluko kanoiaren tiroa izango zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ikuspegi eta metodologia desberdinen **adierazgarri baziren** ere, konstruktibismo sozialaren zigilupean multzotu ditzakegun lanok oinarrizko ezaugarri komun batzuk partekatzen zituzten. Askoren artean

Nik neuk, badaezpada ere, hemengo prentsatik moztu dizkiat **adierazgarri izan** daitezkeen puska horiek; hik hor dituzkean informazio "ofizialekin" kontrastatzeko. Txillardegi

Urte bereko obra giltzarri bion parekatze batetik (antzak eta aldeak, biak **zaizkit adierazgarri**) etekin galanta atera litekeelakoan. Juan Garzia

Ezkerrarekin oro har gertatzen denaren **adierazgarri** al **da** hori? Berria - Mundua

Kontu egin dezagun, gainera, adibide honetan hain zuzen irudia bera baino **adierazgarriago** dela irudiaren kokaera. Josu Zabaleta

· Definizio guztien arabera da, gainera, **adierazgarria** pintura hori. Josu Zabaleta

Robert Caparen argazki bat bezain **adierazgarri** eta salataria **zen** . Lutxo Egia

Adierazgarri samarra **da** kopuru hori nola aldatu den urteetan zehar. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

7 *ikaskuntza adierazgarri* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Ikaskuntza adierazgarri edo ikaskuntza esanguratsua David Ausubel pedagogo eta psikologoak eratutako ikaskuntza-teoria da, konstruktibismoan eragin nabarmena izan duena. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adibide adierazgarria (4); **adierazgarri bat** (17); **adierazgarri batean** (3); **adierazgarri batekin** (3); **adierazgarri baten** (3); **adierazgarri batez** (4); **adierazgarri batzuk** (5); **adierazgarri bezala** (5); **adierazgarri da** (20); **adierazgarri dela** (8); **adierazgarri den** (4); **adierazgarri dira** (15); **adierazgarri eta** (7); **adierazgarri gisa** (6); **adierazgarri hauek** (4); **adierazgarri izan** (14); **adierazgarri izan daiteke** (3); **adierazgarri izan zen** (3); **adierazgarri izango** (3); **adierazgarria da** (101); **adierazgarria da eta** (4); **adierazgarria da oso** (6); **adierazgarria dela** (9); **adierazgarria eta** (4); **adierazgarria iruditu** (3); **adierazgarria iruditzen** (3); **adierazgarria izan** (18); **adierazgarria izan zen** (11); **adierazgarria izango** (3); **adierazgarria zen** (8); **adierazgarriagoa da** (4); **adierazgarriak dira** (16); **adierazgarriak dira oso** (3); **adierazgarriak direlako** (3); **adierazgarriak izan** (5); **adierazgarriak izan ziren** (3); **adierazgarrienetako bat** (5); **adierazgarrietako bat** (3); **aski adierazgarria** (13); **aski adierazgarria da** (7); **baina adierazgarria** (5); **baino adierazgarriagoa** (6); **bat adierazgarria** (3); **baten adierazgarri** (14); **bereziki adierazgarria** (5); **bezain adierazgarri** (4); **bezain adierazgarria** (4); **biziki adierazgarria** (3); **da adierazgarria** (6); **da adierazgarriena** (7); **datu adierazgarri** (5); **datu adierazgarri bat** (3); **datu adierazgarriak** (3); **egoeraren adierazgarri** (9); **ere adierazgarria** (5); **eta adierazgarri** (5); **eta adierazgarria** (7); **eta adierazgarria da** (4); **eta adierazgarriagoak** (3); **eta adierazgarriak** (3); **eta adierazgarriena** (4); **eta hori adierazgarria** (3); **eta horren adierazgarri** (7); **ezin adierazgarriago** (4); **guztiz adierazgarria** (5); **guztiz adierazgarria da** (3); **honen adierazgarri** (4); **hori adierazgarria** (4); **horren adierazgarri** (41); **horren adierazgarri da** (8); **horren adierazgarri dira** (4); **horren adierazgarri izan** (5); **horren adierazgarrietako** (3); **horren adierazgarrietako bat** (3); **horren adierazgarritzat** (3); **irudi adierazgarria** (3); **isilune adierazgarri** (3); **keinu adierazgarri** (7); **keinu adierazgarri batez** (3); **kulturaren adierazgarri** (3); **modu adierazgarrian** (6); **nahiko adierazgarria** (4); **obra adierazgarria** (3); **oso adierazgarri** (4); **oso adierazgarria** (25); **oso adierazgarria da** (17); **oso adierazgarria izan** (3); **oso adierazgarriak** (10); **oso adierazgarriak dira** (4); **politikoaren adierazgarri** (3)

---

adierazgarriro *adlag* modu adierazgarrian.

Headlam-Morleyk bere adierazpenak egin eta bost urte geroago, Paul Valéryk oso **adierazgarriro** aldarrikatu zuen zibilizazio guztiak hilkorrak zirela. Iñaki Mendiguren

---

adierazgarritasun 1 *iz* adierazgarria denaren nolakotasuna.

Adierazgarritasuna desitxuraketatik sortzen da, beraz; hortxe du, agian iturburua. Josu Zabaleta

Espresionismoarentzat emozioari loturik egon da luzaro **adierazgarritasuna** , haren bortiztasunean eta haren ezin besterenduzko izaeran. Josu Zabaleta

Sinboloaren kontzeptuaren azpian abstrakzioa eta **adierazgarritasuna** ezkutatzen dira. Askoren artean

Zineman, pinturan baino gehiago oraindik, argiaren estiloak erabakitzen du irudiaren **adierazgarritasuna** . Josu Zabaleta

Irudi abstraktuak, "soilak" indar berriz piztu du, beraz, irudi figuratiboari dagokionez antzinatik zetorren baina askotan ahaztu izan den gai bat: **adierazgarritasunaren** auzia. Josu Zabaleta

Adierazgarritasunaren auzia izan baita, izan ere, estetikari buruzko eztabaida gehien eragin dituenetako bat, XX. mendean batez ere. Josu Zabaleta

Alde batera uzten ditut hemen muntaketaren narraziozko edo **adierazgarritasunezko** eginkizun guztiak. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Argi dago Kongresuan egin dezakegun lanak ez duela halako **adierazgarritasun** zuzenik izango, baina komunikazio lana egin dezakegu. Berria - Euskal Herria

Adibideak adibide-balio, eta **adierazgarritasun** natural baten eredu gisa balioko digu. Josu Zabaleta

26 arkitekto bulegoren artean aukeratu dute Astigarraga eta Lasarteren proiektua, "kalitatearen aldeko apustua, neurriko hizkera formal eta garbi batean oinarritua, **adierazgarritasun** plastiko handiko kanpoaldeko bolumetraia planteatzen duena delako", epaimahaiaren arabera. Berria - Kultura

Adierazgarritasun formal eta subjektiboaren aldezlerik sutsuena izan zen. Josu Zabaleta

Arte beltzaren kontzeptuak buztin egosizko estatua ashanti bat edo maskara bule bat, fetixe primitibo izatetik **adierazgarritasun** biziko artelan izatera aldatu zuen 1910 inguruan. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Suzanne Langer iparramerikar filosofoak, esate baterako, artearen **adierazgarritasun** -balio horixe den helburu ideal eta historiaz gaindiko baten araberako ikuspegi batetik definitu zuen artea. Josu Zabaleta

Zinema mutuak zenbaitetan gehiegi ere erabili zituen muntaketa-efektu hipertrofikoak dokumentu errealitatearen desitxuraketa bortitza ziren, baina ezin agortuzko **adierazgarritasun** -iturburua izan ziren bolada batean. Josu Zabaleta

Adierazgarritasun -elementuen zerrenda ez da luze-luzea, berez, baina aise ikusten da haiek konbinatuz era daitezkeen konfigurazioen kopurua ia infinitua dela. Josu Zabaleta

Antzezle bat (edo dekorazio bat, agian) film batean presente dagoela esateak ez du askotara behartzen, ez bada hartan begibistan agertzen den **adierazgarritasun** -efektu bizi bat dagoela, presentzia-efektu bat gertatzen dela esatera. Josu Zabaleta

Badirudi 1920ko hamarraldi hartan agortu zituela lehen planoak bere **adierazgarritasun** -aukera guztiak; Dreyerren *Jeanne d'Arc* da, nolabait, **adierazgarritasun** modu horren gailurra. Josu Zabaleta

Identifikazio- eta **adierazgarritasun** -erregistro ongi ezagunekin jokatzen du batez ere, halakoetan, filmak. Josu Zabaleta

Espresionistak pinturan "objektualtasun" lasaigarriegia iruditzen zitzaienaren kontra borrokatu ziren, materialaren eta formaren **adierazgarritasun** -ahalmenak askatzen ahalegindu ziren. Josu Zabaleta

Koadratzea ikuspuntuaren hirugarren zentzu hau adierazteko tresnarik baliagarrienetako bat da, beraz; baina ez bakarra, badira eta beste **adierazgarritasun** -baliabide batzuk horixe bera adierazteko: balio eta koloreen kontrastea, adibidez, edota lausotzea, eta abar. Josu Zabaleta

4 *adierazgarritasun maila* *(corpusean ez dago; ETCn **241** agerraldi)*

Adierazgarritasun maila berezia du 34ko Iraultzari buruzko liburuaren ekarpena. ETC-prentsa

Indize honek, ezbairik gabe, aztertutako bi aldagaien artean korrelazio oso altua dagoela baieztatzen du (**adierazgarritasun maila** oso ona izanik ere -0,01-, bide batez esanda). ETC-literatura, saiakera

Probabilitateen teoriaz baliatuz, nire hipotesiaren araberako kalkuluan, ehuneko 5 -hots, " **adierazgarritasun-maila** "tzat hartzen dena- baino puskaz txikiagoa da emaitza hori izateko probabilitatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adierazgarritasun-maila txikieneko 16 bitek objektu mota jakin baterako balio duten atzipen-eskubideak zehazten dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erreferentziazko esanahi bat abiapuntu hartuta, inplementatu diren edo helburu diren esanahi instituzionalen **adierazgarritasun-mailari** dagokio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Proba alde bikoa denez, lagineko bolada kopuruaren probabilitatea, norabide egokian, **adierazgarritasun-mailaren** erdiarekin alderatu beharko da erabakia hartzeko. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
adierazgarritasunaren auzia (3); adierazgarritasunaren kontzeptua (4)

---

adierazi, adieraz, adierazten *(orobat **adiarazi** g.er. eta **adirazi** g.er.)* **1** du *ad* aditzera eman, jakinarazi; zerbaiten esanahia izan.

Sentimenduak nekez **adieraziko** zituen aitak. Xabier Montoia

Goio izoztu egin dela eta, auskalo zer **adierazi** nahi duen Joseanek izoztu horrekin. Joseba Sarrionandia

Badirudi eguratsa bera ere garagardoz eta speedez belarrietaraino bete dela, eta ez duela bere ostia txarra **adierazi** nahi festetako azken egunera arte. Unai Iturriaga

Zekarren kutxa handi ederrak hala **adierazten** zuen. Juan Kruz Igerabide

Kontseilariak bildu ziren eta boz batez **adierazi** zuten ez zirela holako iritziarekin ados, ez zutela onartzen Aldude Baigorritik bereiztea, beraz kondenatzen zutela holako aterabidea. Michel Oronoz

Urteetan zehar neuk hausnartutako arazoa edo arazoak, sakontasunik eta argitasun-erraztasunik harrigarrienaz **adierazita** aurkitu ditut. Jenaro Garate

Tia Maria sofan jarrita, gorputza aurrera botata kulunka ari zen, behe ezpainak hozkatzen zituen, une batetik bestera negarrez hasiko zela **adierazten** zuten begi hezeekin lurrera begira. Jon Maia

Geldituko zara etxean, eta ez duzu entzun ere egingo, baina ez zara bakarrik sentituko, bere isiltasunak ez duelako absentzia **adierazten**. Lander Garro

Eta beste iritzi asko **adierazi** ziren jarraian. Jon Arretxe

Gor batekin hizketan bezala, poliki-poliki, zure izen berria isilpean **adierazten** ahalegindu zara ezpainekin. Rafa Egiguren

Hizketetan aberatsak, dena hizketen bidez **adierazten** dute, zehar estiloa baztertuz. Jose Antonio Mujika

Aurrez telegrama bat ere bidalia zion ahizpari, alajaina, Rose gripeak jota zegoela eta atseden hartu zuela **adierazteko**. Mirentxu Larrañaga

Rosemunde... -ahoskatu zuen beste behin-: hitzak koblakari baten harpa hotsa dirudi - **adierazi** zidan leihora begira. Aritz Gorrotxategi

Horregatik, esker ona **adierazteko** niregana hurbildu eta ezpain mamitsuak nire masailerantz bideratu zituenean, burua jiratu eta ezpainak eskaini nizkion. Migel Angel Mintegi

Nola **adierazi**, eta nola isildu mezua ozenagoa bihurtu gabe. Pako Aristi

Zer esango zion, ba? Mirarik bere jantzi koloretsuek aldarrikatzen zuten moduko hippya izan nahiko zukeen, maitasun librea, askatasuna eta horrelako hitz potoloek **adierazi** nahi zutena bizi. Fernando Morillo

Horixe **adierazi** gura izan zenion, nabarmenkiro egin zenuen hasperenaz. Koldo Izagirre

Alexander Pope ez zen pentsamendu berri bat **adierazten** ari. Irene Aldasoro

Halabeharra hitza, berdin-berdin erabil liteke euskaraz txiripa **adierazteko**, kasualitate hutsa alegia, ala patua, izarren zeinuetan gertatu behar zuela idatzitakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikasleak izan zirela ez zegoen dudarik: haiek ez zuten aitortu halakorik, batik bat inork ez zielako ulertzen zer **adierazten** zuten, zein hizkuntzatan mintzatzen ziren: ez maisu-maistrek, ez agintariek, ez poliziek, ez umeen gurasoek ere. Karlos Linazasoro

Nik ere telebista daukat - defenditzen zen Armando, konbentzionalismoaren aurkako borrokan muga non ipintzen zuen **adierazten** ariko balitz bezala. Jon Alonso

Gutun-azaletako zigiluek gutuna nondik bidalia zen argi eta garbi **adieraztea** zen gauzarik bitxiena: Kubatik bidaliak ziren, eta posta markatan jarrita zeuden datak garai ezinezko batekoak ziren. Jon Muñoz

Monikek ez luke maitemin hitza erabiliko Karlekiko sentitzen zuena **adierazteko**. Eider Rodriguez

Ikuspegi molde hori **adierazi** diodalarik Gilen adiskideari, irri karkaraz hasi zait botatuz: Piarres Aintziart

Liburua, izengoitiz izenpetua argitaratu zena, La Voz de Guipúzcoa egunkari errepublikanoan argitaratu zituen tokiko historiako kronika batzuen emaitza zen; egunkari hartan **adierazi** zituen bere ideia politikoak ere. Askoren artean

Sorbalda jaso dut, ezer ez nekiela **adieraziz**. Iban Zaldua

Introspekzio lirikoa nagusitzen da gizartearen deskribapenaren gainetik, oroimina, melankolia **adierazten** duen aldarte bat. Ibon Uribarri

Alemaniako liburu-sailtzaileek 1997an emandako Bakearen Saria hartzeko ekitaldiko hitzaldian Kemalek modu eder honetan **adierazi** zuen kurduen arazoaren muina zein den: Fernando Rey

Aldez, jaurtitzeko unea hala **adierazi** ohi delako hartu du egileak sailen zenbakiak atzekoz aurrera jartzea. Joxerra Garzia

Izugarri asko dela ere esan daiteke, baina zifra hutsean **adierazita** ez digu ikararik sorrarazten. Joxerra Garzia

Emakumearen gaiaren inguruan, inkomunikazio handia bizi dela **adierazten** du Urretabizkaiak, eta emakumeak, aldi oro, beti deskubritzen ari den sentsazioa duela, horrek dakarren higadurarekin. Ana Urkiza

Belazkitak, gizonaren jakin-mina areagotu nahian, erantzuna atzeratzen dio, zotinka, gertatua **adierazteko** hitz egokirik aurkitzen ez duelako itxura eginez. Martin Anso

Ez nion liburua nork bidaltzen zion **adierazi** nahi, susmo txarrik har ez zezan: seguru nengoen nik bidalia zela jakin bezain aise, ez niola sinestaraziko, munduko juramentu guztiak eginda ere, azpimarrak eta oharrak irakurri gabe gelditu nintzela. Anjel Lertxundi

Zuk ez duzu inoiz inbidiaren antzeko ezer **adierazi**, adiskideen umeekin-edo egon zaretenean. Lourdes Oñederra

Posterrak eta argazkiak hormetan pilatzen ziren, zaharrenak jadanik horituta zeuden, beste batzuk erdi apurtuta, baina hantxe irauten zuten ausartenek, urterik urte, denboraren bidea **adierazteko**. Sonia Gonzalez

Soluzioek liluratzen gaituzten inuzenteok ordea atseginez ezagutu ditugu liburuan barrena Santamariaren eta Heideggerren salbabideak: teknikaren zemaiei poesiaz - **adieraz** dezala poetak santutasuna, munduaren ilunean-, heziera berriaz, jakinduriaz abegi egitea. Markos Zapiain

Nire egunon laburra denendako zen harendako izan ezik, baina, tamalez, ez nuen bereizkuntza **adierazten** jakin. Aingeru Epaltza

Baina, gezurra esan ote nezaken susmoa **adierazi** duzunez, ez dut besterik esango! Pablo Sastre

Horregatik barreak -eta keinu egin nion, apalategirantz, dokumentuaren kopia hantxe nuela **adierazteko** moduan. Edorta Jimenez

-Txekea esku dirutan kobratzeko ari naiz egiten - **adierazi** zuen mutilak. Koro Navarro

Zementu grisez eraiki dute halako saizulo bat (nolazpait **adierazi** behar) itsusi halakoa. Txillardegi

2 (era burutua izenondo gisa)

Adierazlea eta **adierazia**, banatuki hartzen direnean erabat negatiboak eta bereizgarriak diren arren, haien konbinaketa halere gertaera positiboa da. Isabel Arrigain

3 (izen gisa)

3 Gauza eta arte guztietan, baina batez ere arkitekturan, bi gauza hauek ematen dira: **adierazia** eta adierazlea. Santiago Iruretagoiena

Baina hitzezko hizkuntzarekin, inplizituki baina beharturik, egin dugun konparazio hori, iradokiz bezala dago izan behar duela nahitaez, irudian ere, azpiko esanahi maila bat, hitzezko **adieraziei** buruz mintzatzean irudizko adiera esaten zaionaren parekoa. Josu Zabaleta

[...] eta baita harreman funtzionalak, kausalak, analogikoak; izan daiteke adierazlearen eta **adieraziaren** arteko harremana). Xabier Arregi

Izan ere, adierazlea "ziorik gabekoa da, hots, arbitrarioa, **adieraziari** buruz, honekin ez baitu errealitatean inongo uztardura berezkorik. Isabel Arrigain

4 ***adieraztera eman*** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **aditzera eman** agertzen da)*

Genevieve LEBARD andereak **adieraztera eman** du ehuneko 70 era hel ditaikela bere erakundearen laguntza 6 eta 18 urte arteko gaztentzat. Herria

---

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)
adieraz daiteke (17); adieraz dezake (15); adieraz dezakeen (9); bidez adieraz (12); ezin adieraz (14)

abokatuak adierazi (11); adierazi ahal (30); adierazi ahal izateko (19); adierazi arren (18); adierazi baitu (11); adierazi baitzuen (15); adierazi behar (108); adierazi behar da (14); adierazi behar du (10); adierazi beharko (20); adierazi beharra (15); adierazi berri (20); adierazi berri du (11); adierazi bezala (49); adierazi die (38); adierazi diete (14); adierazi digu (21); adierazi dio (114); adierazi dio berriari (27); adierazi dionez (30); adierazi diot (19); adierazi diote (30); adierazi dit (13); adierazi du (1519); adierazi du erredakzioa (17); adierazi du eta (11); adierazi du ez (17); adierazi duen (9); adierazi duenez (289); adierazi dugu (10); adierazi dugun (16); adierazi dugun

bezala (9); adierazi dut (12); adierazi dute (320); adierazi dute erredakzioa (9); adierazi duten (15); adierazi dutenez (95); adierazi duzu (11); adierazi ere (23); adierazi eta (90); adierazi eta gero (10); adierazi ez (33); adierazi ezin (10); adierazi gabe (36); adierazi izan (44); adierazi izan du (12); adierazi nahi (555); adierazi nahi da (16); adierazi nahi diegu (12); adierazi nahi du (45); adierazi nahi duen (9); adierazi nahi dugu (27); adierazi nahi dut (17); adierazi nahi izan (79); adierazi nahi zion (9); adierazi nahi zuen (38); adierazi nahi zuena (13); adierazi nahian (46); adierazi nahiko (17); adierazi nahirik (12); adierazi nahiz (15); adierazi nien (15); adierazi nion (83); adierazi nire (27); adierazi nuen (13); adierazi ohi (14); adierazi ondoren (29); adierazi ostean (14); adierazi zidan (98); adierazi zien (188); adierazi zien atzo (10); adierazi zienez (17); adierazi zieten (38); adierazi zigun (49); adierazi zion (468); adierazi zion atzo (24); adierazi zion berriari (26); adierazi zionean (11); adierazi zionez (51); adierazi zioten (85); adierazi ziotenez (10); adierazi zituen (27); adierazi zituzten (13); adierazi zizkien (12); adierazi zizkion (14); adierazi zuela (13); adierazi zuen (5480); adierazi zuen aebetako (14); adierazi zuen aguirrek (11); adierazi zuen al (15); adierazi zuen atzo (699); adierazi zuen atzoko (12); adierazi zuen azkaratek (15); adierazi zuen batasunak (12); adierazi zuen behin (11); adierazi zuen bere (24); adierazi zuen bushek (14); adierazi zuen espainiako (18); adierazi zuen eta (27); adierazi zuen etak (9); adierazi zuen etxe (9); adierazi zuen europako (9); adierazi zuen ez (36); adierazi zuen gobernuak (10); adierazi zuen herenegun (40); adierazi zuen hori (10); adierazi zuen ibarretxek (12); adierazi zuen imazek (13); adierazi zuen israelgo (12); adierazi zuen jean (12); adierazi zuen jose (12); adierazi zuen lopezek (12); adierazi zuen orduan (12); adierazi zuen otegik (19); adierazi zuen pse (10); adierazi zuen zapaterok (10); adierazi zuenaren (9); adierazi zuenean (17); adierazi zuenez (949); adierazi zuten (559); adierazi zuten atzo (61); adierazi zutenez (181); agintariek adierazi (10); alkateak adierazi (10); antolatzaileek adierazi (12); arduradunak adierazi (16); arduradunek adierazi (19); arduradunek adierazi dutenez (11); argi adierazi (46); ari dela adierazi (28); ari direla adierazi (23); ari zirela adierazi (9); asmoa adierazi (22); asmoa duela adierazi (12); asmoa dutela adierazi (9); atxikimendua adierazi (27); atzo adierazi (352); atzo adierazi zuen (81); atzo adierazi zuenez (219); atzo adierazi zutenez (29); aurkezpenean adierazi (12); aurkezpenean adierazi zuenez (9)

babesa adierazi (25); badela adierazi (12); baduela adierazi (9); baietz adierazi (20); baina adierazi (15); baino gehiagotan adierazi (11); barne ministroak adierazi (10); bat adierazi (36); bat dela adierazi (11); batean adierazi (41); batean adierazi zuenez (9); batek adierazi (58); batek adierazi zuen (13); batek adierazi zuenez (23); batek atzo adierazi (9); batez adierazi (18); batzuek adierazi (11); behar adierazi (16); behar adierazi zuen (11); behar dela adierazi (50); behar direla adierazi (29); behar dituela adierazi (11); behar duela adierazi (35); behar dutela adierazi (28); behar zaiola adierazi (9); behar zela adierazi (9); beharko dutela adierazi (9); beharko litzatekeela adierazi (10); beharko lukeela adierazi (12); beharra dagoela adierazi (12); beharrezkoa dela adierazi (9); bera adierazi (18); berak adierazi (45); berak adierazi duenez (10); berriari adierazi (57); berriari adierazi dionez (19); berriari adierazi zionez (21); bertan adierazi (15); besterik adierazi (10); bidez adierazi (32); bitartez adierazi (12); bozeramaileak adierazi (22); bozeramaileak adierazi zuenez (9); bozeramaileak atzo adierazi (13); buruak adierazi (19); da adierazi (15); da adierazi zuen (9); dagoela adierazi (167); dagoela adierazi du (31); dagoela adierazi zuen (85); daitekeela adierazi (33); daitekeela adierazi zuen (13); daitezkeela adierazi (10); daudela adierazi (86); daudela adierazi du (17); daudela adierazi zuen (47); daukala adierazi (9); dela adierazi (771); dela adierazi du (149); dela adierazi dute (41); dela adierazi zion (10); dela adierazi zuen (448); dela adierazi zuten (50); dela ere adierazi (12); deus adierazi (10); dezakeela adierazi (11); diela adierazi (19); diola adierazi (39); diola adierazi du (13); diola adierazi zuen (22); diotela adierazi (11); direla adierazi (245); direla adierazi du (42); direla adierazi dute (14); direla adierazi zuen (140); direla adierazi zuten (25); dituela adierazi (139); dituela adierazi du (29); dituela adierazi zuen (85); dituela adierazi zuten (9); dituztela adierazi (78); dituztela adierazi du (10); dituztela adierazi dute (9); dituztela adierazi zuen (44); dituztela adierazi zuten (11); du adierazi (17); duela adierazi (464); duela adierazi du (108); duela adierazi dute (14); duela adierazi zuen (271); duela adierazi zuten (18); duela ere adierazi (9); dutela adierazi (314); dutela adierazi du (48); dutela adierazi dute (32); dutela adierazi zuen (161); dutela adierazi zuten (44)

egin adierazi (26); egin adierazi zuen (13); egin dela adierazi (9); egin duela adierazi (18); egin dutela adierazi (17); egin zuela adierazi (9); egin zutela adierazi (11); egingo adierazi (11); egingo dituztela adierazi (9); egingo duela adierazi (24); egingo dutela adierazi (13); egiten duela adierazi (12); egunkariari adierazi (11); ek adierazi (11); eledunak adierazi (11); elkarrizketa batean adierazi (9); elkarrizketan adierazi (13); elkarrizketan adierazi zuenez (9); elkartasun osoa adierazi (9); elkartasuna adierazi (212); elkartasuna adierazi die (17); elkartasuna adierazi dio (13); elkartasuna adierazi diote (9); elkartasuna adierazi eta (14); elkartasuna adierazi nahi (28); elkartasuna adierazi zien (45); elkartasuna adierazi zieten (18); elkartasuna adierazi zion (16); ere adierazi (105); ere adierazi du (16); ere adierazi zuen (43); ere adierazi zuten (9); ertzainei adierazi (9); esker ona adierazi (13); espero duela adierazi (26); eta adierazi (101); eta adierazi du (11); eta adierazi nahi (10); eta adierazi nire (14); eta adierazi zuen (20); eta elkartasuna adierazi (32); eta garbi adierazi (34); eta hala adierazi (12); ez dagoela adierazi (23); ez dela adierazi (27); ez du adierazi (10); ez duela adierazi (30); ez dutela adierazi (11); ez zuela adierazi (15); ez zuen adierazi (21); ezer adierazi (28); ezin adierazi (10); ezinbestekoa dela adierazi (10); falta adierazi (13); gaitzespena adierazi (9); garbi adierazi (63); garbi adierazi zuen (9); garrantzitsua dela adierazi (11); gehiago adierazi (10); gehiagotan adierazi (11); gobernuak adierazi (16); guztia adierazi (12); hala adierazi (145); hala adierazi du (18); hala adierazi zuen (73); hala adierazi zuten (12); halaxe adierazi (33); halaxe adierazi zuen (13); hau adierazi (34); hau adierazi zuen (14); hauxe adierazi (45); hauxe adierazi zuen (31); herenegun adierazi (16); hitzez adierazi (16); honako hau adierazi (10); honakoa adierazi (19); honakoa adierazi zuen (11); honela adierazi (15); hori adierazi (27); horixe adierazi (32); horixe adierazi zuen (13); horrek adierazi (10); horrela adierazi (26); horrela adierazi zuen (11)

idazkari nagusiak adierazi (12); imazek adierazi (11); iturriek adierazi (36); iturriek adierazi dutenez (10); iturriek adierazi zutenez (21); izan adierazi (34); izan adierazi zuen (19); izan dela adierazi (34); izan direla adierazi (13); izan zela adierazi (61); izan zirela adierazi (19); izango adierazi (22); izango adierazi zuen (12); izango dela adierazi (48); izango direla adierazi (10); izango zela adierazi (14); jarraituko duela adierazi (12); jarraituko dutela adierazi (24); jaunak adierazi (12); kezka adierazi (25); kideak adierazi (9); konpromisoa adierazi (11); lehenago adierazi (12); lehendakariak adierazi (22); lehendakariak adierazi zuenez (9); lekukoek adierazi (17); lekukoek adierazi zutenez (11); liratekeela adierazi (9); litzatekeela adierazi (25); litzatekeela adierazi zuen (17); lopezek adierazi (9); lukeela adierazi (34); lukeela adierazi zuen (21); mezua adierazi (12); ministroak adierazi (31); ministroak adierazi zuen (19); ministroak adierazi zuenez (9); ministroak atzo adierazi (13); nagusiak adierazi (28); nagusiak adierazi zuen (10); nagusiak adierazi zuenez (9); nagusiak atzo adierazi (15); nahi adierazi (13); nahi duela adierazi (25); nahi dutela adierazi (22); nahi zuela adierazi (16); nahia adierazi (11); nola adierazi (51); nuela adierazi (14); oharrean adierazi (15); ona adierazi (13); onartuko adierazi (14); ondoren adierazi (9); ongi adierazi (10); ordezkariak adierazi (22); osoa adierazi (18); penaltia adierazi (17); penaltia adierazi zuen (13); poliziak adierazi (16); poza adierazi (14); prentsa oharrean adierazi (12); prentsaurrekoan adierazi (15); prentsaurrekoan adierazi zuenez (9); presidenteak adierazi (30); presidenteak adierazi zuen (13); prest dagoela adierazi (20); prest daudela adierazi (11); prest zegoela adierazi (15); sailak adierazi (10); sailburuak adierazi (12); sostengua adierazi (31); zaiela adierazi (9); zaiola adierazi (15); zaiola adierazi zuen (11); zegoela adierazi (87); zegoela adierazi zuen (44); zela adierazi (263); zela adierazi du (10); zela adierazi zion (12); zela adierazi zuen (165); zela adierazi zuten (26); zen adierazi (17); zer adierazi (77); zer adierazi nahi (66); zera adierazi (80); zera adierazi zuen (50); zerbait adierazi (40); zerbait adierazi nahi (20); zeudela adierazi (20); ziola adierazi (19); ziola adierazi zuen (13); zirela adierazi (92); zirela adierazi zuen (53); zirela adierazi zuten (15); zitekeela adierazi (16); zituela adierazi (31); zituela adierazi zuen (20); zituztela adierazi (30); zituztela adierazi zuen (16); zituztela adierazi zuten (11); zitzaiola adierazi (10); zuela adierazi (186); zuela adierazi zion (12); zuela adierazi zuen (115); zuela adierazi zuten (9); zuen adierazi (29); zutela adierazi (104); zutela adierazi zuen (50); zutela adierazi zuten (28); zuzendariak adierazi (18)

adierazia zuen (15); adieraziko dizut (11); adieraziko du (24); adieraziko dute (15); adieraziko luke (15); adieraziko zion (9); adierazitakoaren arabera (54); adieraziz bezala (19); adieraziz eta (9); adieraztea da (14); adieraztea eta (17); adieraztearekin batera (9); adierazteaz gain (14); adierazteko aukera (22); adierazteko balio (13); adierazteko erabili (22); adierazteko erabiltzen (31); adierazteko ere (14); adierazteko eskatu (9); adierazteko eskubidea (9); adierazteko eta (36); adierazteko gai (14); adierazteko gauza (10); adierazteko modu (12); adierazteko modua (13); adierazteko orduan (12); babesa adierazteko (18); bat adierazteko (26); bera adierazteko (9); dela adierazteko (33); den adierazteko (13); duela adierazteko (17); elkartasuna adieraztea (21); elkartasuna adierazteko (118); elkartasuna adierazteko eta (16); eta adierazteko (18); ez adieraztea (9); ezin adierazizko (11); gauzak adierazteko (14); hori adierazteko (25); nuela adierazteko (9); presoei elkartasuna adierazteko (10); sentimenduak adierazteko (12); sostengua adierazteko (11); zegoela adierazteko (11); zela adieraziz (18); zela adierazteko (22); zerbait adierazteko (14); zuela adieraziz (19); zuela adierazteko (12)

adierazten ari (21); adierazten baitu (28); adierazten baitute (9); adierazten baitzuen (12); adierazten da (58); adierazten dela (11); adierazten den (19); adierazten digu (33); adierazten dio (20); adierazten dira (14); adierazten dit (12); adierazten ditu (37); adierazten dituen (20); adierazten dituzte (29); adierazten dituzten (20); adierazten du (513); adierazten du bere (12); adierazten du horrek (12); adierazten duela (48); adierazten duelako (13); adierazten duen (206); adierazten duen bezala (29); adierazten duena (88); adierazten duena baino (11); adierazten duenez (25); adierazten dugu (28); adierazten dute (140); adierazten dutela (21); adierazten duten (77); adierazten dutena (15); adierazten dutenak (19); adierazten dutenez (12); adierazten eta (14); adierazten ez (58); adierazten ez duen (13); adierazten ez zuen (9); adierazten hasi (10); adierazten omen (11); adierazten zen (14); adierazten zidan (22); adierazten zien (11); adierazten zion (26); adierazten zituen (18); adierazten zuela (17); adierazten zuen (215); adierazten zuena (24); adierazten zuenez (18); adierazten zutela (9); adierazten zuten (103); adierazten zutenez (13); argi adierazten (36); argi adierazten du (12); bat adierazten (64); bat adierazten du (22); batean adierazten (10); batek adierazten (16); bera adierazten (21); berak adierazten (20); besterik adierazten (11); bidez adierazten (43); da adierazten (12); dagoela adierazten (15); dela adierazten (38); dela adierazten du (19); den adierazten (12); direla adierazten (14); du adierazten (24); duela adierazten (22); dute adierazten (11); dutela adierazten (13); egoera adierazten (9); elkartasuna adierazten (16); elkartasuna adieraztera (13); ere adierazten (30); esentzia adierazten (10); eta adierazten (15); eta garbi adierazten (13); ez du adierazten (23); ez dute adierazten (11); ez zuen adierazten (11); eza adierazten (9); ezer adierazten (19); garbi adierazten (54); garbi adierazten du (17); gehiago adierazten (9); hala adierazten (20); hau adierazten (15); hitzek adierazten (9); hobeto adierazten (13); honek adierazten (11); hori adierazten (30); horixe adierazten (13); horrek adierazten (42); horrek adierazten du (18); horrela adierazten (9); izenburuak adierazten (11); izenburuak adierazten duen (9); nahia adierazten (10); nola adierazten (9); ondo adierazten (12); ongi adierazten (13); soilik adierazten (9); zegoela adierazten (12); zela adierazten (47); zela adierazten zuen (18); zer adierazten (41); zer adierazten du (9); zerbait adierazten (18); zirela adierazten (16); zuela adierazten (27); zuen adierazten (14)

---

adieraziezin ik **adierazezin**.

---

adierazkaitz *izond* adierazten zaila, ia adierazezina.

Bezperan, azken antolamenduak egiten ari ginela, halako aztoramen **adierazkaitz** bat genuen denok. Irene Aldasoro

Freskotasuna kontatzeko eran, hain gauza sakon, konplexu eta **adierazkaitzak** modu natural batean esaten dituztelako. Berria - Kultura

---

adierazkera *iz* adierazteko era.

Zuen **adierazkera** adierazgai bihurtzen da hemen, eta antzezleek ematen diote gorputza, itxura, ahotsa eta keinua; horiek, jakin dezazun behingoz, hau baino aski gai goratuagoei ere jakin dute **adierazkera** ematen. Josu Zabaleta

Zuen **adierazkera** zeuon baitan duzuela? Ez da horrelakorik! Josu Zabaleta

Gauza zailagoa baita, hain zuzen, esaldia nahi bezala erabili ahal izatea, esaldiari dena, baita esaten ez duena ere, esanaraztea, azpizentzuz, ezkutuko asmo esan gabez betetzea-, **adierazkera** berriak asmatzea baino. Josu Zabaleta

---

adierazkizun *iz* adieraztea.

Hitz honek funtsean bi esanahi dituela esango digu hango eta hemengo euskararen berri dakien edonork; bi sailetan bana daitezkeela samur-gauzaren **adierazkizunak**, halako moldez non samurra izan baitaiteke "biguna, amultsua", eta izan baitaiteke, ipar-ekialdera, "haserrea". Iñaki Segurola

Gauzak diren eta izan behar duten bezala adierazi eta, beraz, gauzetan (hots, ideietan, kontzeptuetan, jakineko **adierazkizunetan**) sinetsi, eta haiei hitz egoki bana erantsi? Iñaki Segurola

---

adierazkor 1 *izond* bizitasunez edo argiro adierazten duena. ik **adierazgarri**.

Inorekin hitz egiterakoan, barne hitzari ahotsaren zerbitzua eransten diogu, edo beste seinale **adierazkorren** bat. Imanol Unzurrunzaga

Kolorearen erabilera **adierazkorrak** liluraz beteriko atmosfera sortzen du. Berria - Kultura

Gonbidatuak, bat-batean, garrantzi handiko gai bati buruz hitz egin nahi ziola jakinarazi zion, oso begirada **adierazkorra** egotziz. Jose Morales

Arrantzaleak ez zuen hitzik esan, begiratu **adierazkor** batekin erantzun baizik. Migel Angel Mintegi

Minutu erdi geroago, papera mahai gainean utzi nion zuzendariordeari, keinu **adierazkor** batez. Aingeru Epaltza

Nik bi autografoak egin, eta buru zirudienak, esku-keinu **adierazkor** bat eginik, esan zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Haien bidez mezu **adierazkor** bat helerazten zidala, konplizitatetik gehiago zuena haserretik baino. Joan Mari Irigoien

Nukleo **adierazkor** bera hitz ezberdinen bidez atzematen denean. Xabier Arregi

Ivan Ogareff tatarieraz mintzo zen, eta ekialdeko jendeen hizketak bereizgarri duen molde **adierazkorra** ematen zien bere esaldiei. Karlos Zabala

Oso modu **adierazkorrean** begiratu zion Txitxikovi aurpegira. Jose Morales

Hogeigarreneko hamarraldiaz gero gauzen irudikapen **adierazkor** bat lortzeko ere erabiltzen hasten da Europako "arte"-zineman. Josu Zabaleta

Errepikapenaren errepikapenaz sortzen den sonoritate hutsa **adierazkorra** da, berez. Iñaki Arranz

Bayo sopranoak antzokia bete zuen bere ahots biribil eta **adierazkorrarekin**. Berria - Kultura

Inguruko muino eta malda guziek askoz ere ugariagoak, biziagoak eta **adierazkorragoak** iruditzen zaizkit. Patziku Perurena

Keinuen hizkuntza hain **adierazkorra** izateak ere erraztu egiten du bi herrialde ezberdinetako pertsonen elkarrizketa? Berria - Euskal Herria

Argumenturik originalenak, konparaziorik **adierazkorrenak** erabiliz. Patxi Zubizarreta

Imitaziozko artea ere izan daiteke **adierazkor**, itxura kopiatze hutsetik ihes egin eta "berez adierazgarriak diren formak atxikitzen" ahaleginduz gero. Josu Zabaleta

Aldi honetan, nolabait, gau hartan baino **adierazkorrago** hitz egin zuen, benago, gogagarriago Amerikaren etorkizunaren gaineko bere etsipenean sakontzen zuen heinean. Oskar Arana

Don Estebe Perminengana hurbildu zen, garaipenaren keinu ezin **adierazkorragoa** aurpegian marrazturik. Joan Mari Irigoien

Barrengo ekaitzaren eta niri erakutsi nahi zidanaren lasaitasunaren arteko ispilu bi ziren: ezin **adierazkorragoak**, ur-jauzi apartsuen ondorengo ubera bi. Anjel Lertxundi

Soldaduak ere bat egin du, burua **adierazkor** higituz, nabarmen umore onez. Urtzi Urrutikoetxea

2 *funtzio adierazkor* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Funtzio adierazkorra: musikak konnotatzen duen mugimendu afektiboak emozio zehatza eragiten du, soinu-giro berezia sortuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hots diagetikoek errealismo-inpresioa azentuatzeko balio duten bitartean, hots extradiagetikoek medio honen edozein **funtzio adierazkor** bete dezakete: giroak, misterioak eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Objektuen kategorizazio-prozesupean egoteko joera du funtzio honek. iv) **Funtzio adierazkorra**: gizabanakoaren berezko estiloa helarazteko baliagarria denean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izen horiek ikertu ditugu eta izen horien bidez, euskal identitatea eta euskararen **funtzio adierazkor** hori aztertu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Halaber, egunkari zein aldizkarietan, non oraindik argazkiak apenas baliatzen ziren, marrazkiek **funtzio adierazkor** handia izan zuten, eta umore grafikoak, didaktiko-propagandistikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kaiku-ren iragarkiekin (ere) gertatu denaren haritik: kanpainak euskaraz (ere) pentsatuko balira, hizkuntzaren **funtzio adierazkorra** ez balitz geratuko "traduce ésto" soilean, kontuak dezente aldatuko lirateke. ETC-prentsa

Halako tonu elegiakoa lortu du atal bizi eta gertutasun handiko horretan, non kanpai hotsek ere beren **funtzio adierazkor** sinbolikoa betetzen duten. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adierazkor bat** (4); **adierazkor batez** (3); **adierazkorra da** (3); **eta adierazkorrak** (3); **keinu adierazkor** (4); **modu adierazkorrean** (3); **oso adierazkorra** (3); **oso adierazkorrak** (3)

---

adierazkortasun 1 *iz* adierazkorra denaren nolakotasuna.

Marmolezko estatuen **adierazkortasuna**. Fernando Morillo

Argi geratu zaizkigu konpainiako dantzarien prestakuntza eta maila itzela, erabatekoak baitira guztien energia, malgutasuna, **adierazkortasuna** eta barne-adostasuna. Berria - Kultura

Diglosia gaitzesgarri baten seinale ikusten du berak gaztelaniaren presentzia hau euskal esaldietan, baina hizkeraren **adierazkortasuna** ez ote dugun aberasten galdetu behar genukeela iruditzen zait. Iñaki Arranz

Hizkuntzak bere **adierazkortasuna** galtzen baitu hainbeste mirakulu handien aurrean. Ibon Uribarri

Aktoreen **adierazkortasunak** beteko du hizkuntza ez-ulergarrien hutsunea. Berria - Kultura

Kiki la Rose solo ederra eskaini zigun Bruno Roy dantzariak, Berliozen kanta biren laguntzaz, besoen **adierazkortasunari** utziz mugimenduaren protagonismo guztia. Berria - Kultura

Emakume baten gorputzean edertasunik gutxien duen zatia, **adierazkortasunik** gutxien duena, eta, beharbada horrexegatik, maitagarriena. Oskar Arana

Aurpegi zapala du, **adierazkortasunik** gabea. Oskar Arana

Adierazkortasunik gabeko aurpegia eta begi iheskorrak ditu. Joseba Sarrionandia

Neure **adierazkortasunik** eza, neure hizketako moztasuna kittatzeko edo emendatzeko hasi nintzela uste diat idazten. Patziku Perurena

Betile zuriak kliskatzen zituen denbora guztian, **adierazkortasunik** gabe, jakin-minik gabe, areto handia arakatzen zuen begiekin. Jose Morales

Sudur bizkor horrek **adierazkortasun** berezia ematen dio aurpegiari. Iñaki Zabaleta

Hasieran, Egor Timofeievitxek oso ondo eta **adierazkortasun** handiz irakurtzen zuen, baina luze gabe arreta galtzen hasi zen. Jose Morales

Izan ere, hizkuntza guztietan adierazpena oso hertsaturik dagoelako, eta horregatik halako gai bat ezin dezakegu hitzen bidez irudika, nolabaiteko **adierazkortasun** zabalaz baizik. Xabier Kintana

Formularen **adierazkortasun** harrizkoa estimatu zuen, semantikoki eraso ezina zen. Jon Alonso

Adierazkortasun saria. Berria - Kultura

Bustiduraren kasuan, berriz, **adierazkortasun** arrazoien karietara egin palatalizazioa baizik ez da bere horretan transkribatuko. Berria - Kultura

Hori behintzat jakin dezatela hasterako euskarazaintzaile zurrunek: nahita eginak direla, alegia, akats batzuk, ez hiztegi eta gramatika garbiaren kaltetan propio, baina bai literatur **adierazkortasun** askotan ez hain aseptikoaren beharretara makurtuz. Juan Garzia

Bai Allemandi zuzendariak, zein Sparvoli eszena buruak, Verdi konpositoreak jarri zituen ikuskizun dramatikoa eta doinu **adierazkortasuna** islatu zituzten. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

adierazkortasuna eta (5); **aurpegiaren adierazkortasuna** (4)

adierazle 1 *izond* adierazten duena.

Tribuaren ikur **adierazle** gisa arrano zuria hartu zuten, gaur egun ere Poloniaren ikur den arranoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Dantzaren mugimendu jarraian, mimikak xede **adierazle** zehatza duelarik, gorputz atalen mugimendu errimikoren bat bere osoan begien gozamenerako izanik ere, arrazoizko deritzogu dantzari, ikusle argiak ulertzen duelako han irudikatzen eta erakusten dena, plazer sentsuala alde batera utzita. Imanol Unzurrunzaga

2 (izen gisa)

Zaldiak beti, lau aztalak xuri, aparteko bizitasunaren **adierazle**. Patziku Perurena

Ba ote dakizu hodeiak nola dauden orekan airean, jakintza miresgarriaren **adierazle**? Elizen arteko biblia

Lotura arbitrario batek elkartuak dauden adierazi batez eta **adierazle** batez. Isabel Arrigain

Hizkuntza giza bizitzaren **adierazle** da, haien ustez, eta herri zein arraza bakoitzaren espiritua. Bernardo Atxaga

Giza gaitasunaren lorpenen **adierazle** bat da, oinarrizko hiru alderdi hartzen dituena, hala nola: bizitza luze eta osasungarria, jakinduria eta bizi-maila. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Adierazle horiek ez dira gai hainbat faktore positiboren bilakaera neurtzeko. Iñaki Heras

Adierazle horren arabera, ordea, Erresuma Batua eta Frantzia, konparazio baterako, 1913an baino zertxobait irekixeago daude atzerri aldera, eta Japonia, berriz, orduan baino are itxiago. Iñaki Heras

Adierazle hauek geometrikoak eta zinetikoak dira aldi berean: informazio hauek ez dira tratatzen, beraz, erretinan, kortexean baizik. Josu Zabaleta

Hamar Aginduek zenbait eginbehar eta debeku ezartzen dituzte eta, Jainkoaren borondatearen **adierazle** direnez, aginduok absolutuak dira. Askoren artean

Dena den, diskurtso hutsal hori, egungo klase politikoaren ezintasunaren **adierazlea** besterik ez da. Berria - Harian

Dikotomia honetan, konkrezio gabeko **adierazle** hutsen *(empty signifiers)* produkzioa da beharrezko, partikularrek unibertsalen forma har dezaten. Joseba Zulaika

Definitu izan dira, eta erabiltzen dira **adierazle** berriak; esaterako, Giza Garapenaren Indizea. Iñaki Heras

Ekonomiaren hazkundea neurtzeko erabiltzen diren **adierazle** makroekonomikoei loturikoak. Iñaki Heras

Sakontasunari eta espazioari dagokienez, arautzat eman daiteke **adierazle** estatiko guztiek dituztela **adierazle** dinamiko baliokideak. Josu Zabaleta

BPGa **adierazle** egokia al da gizarte baten garapenak edo ongizateak izan aurrerapenaren zenbatekoa neurtzeko? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Indize hori izan zen berotasun aldi ikaragarri horren **adierazle** nabarmena. Iñaki Heras

Freudentzat "gorputzaren barrenetik sortu eta psikismora iristen diren kitzikaduren **adierazle** psikikoa" da irrika. Josu Zabaleta

Estatistikak, datuak eta **adierazleak** ia edozer errealitate edo erlazio frogatzeko manipula daitezke ekonomian. Iñaki Heras

Ikurraren aldaketa dela **adierazlearen** eta adieraziaren arteko erlazioaren lerraketa bat. Isabel Arrigain

Saussurek esaten du ikurraren arbitrariotasuna lehen hatsapena dela, ondoan, garrantzi bereko beste lege bat duena: **adierazlearen** linealtasunarena, alegia; **adierazleak** "hedadura bat irudikatzen du eta hedadura hori dimentsio bakar batean da neurgarria". Isabel Arrigain

Adierazlea eta adierazia, banatuki hartzen direnean erabat negatiboak eta bereizgarriak diren arren, haien konbinaketa halere gertaera positiboa da. Isabel Arrigain

Mintza bedi, beraz, isiltasuna, hitzak huts egiten duen lekuan, adieraziak ere oihu egiten baitu, **adierazleak** huts egiten duenean. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kontaketa, jakina den bezala, beren esanahiak historia bat osatzen duten **adierazle** multzo bezala aski zehatz definitua du azkenaldi honetako narratologiak. Josu Zabaleta

Lacanen iritzian, subjektua mundu sinbolikoaren efektu bat da, mundu sinboliko hori, era berean, zentzua beren arteko erlazioetan baizik hartzen ez duten **adierazle**-sare bat bezala ulerturik; Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikuspegi horren arazo nagusietako bat neurketak egin ahal izateko zailtasuna da, ekonomia **adierazleak** osatzekoa. Iñaki Heras

Ekonomialariek hedapen prozesuan diren moneta-**adierazleak** ikusten dituzte, baina ekologoek, biologoek, soziologoek, psikologoek eta giza garapen iraunkorraren arloko aditu guztiek ekonomia berregituratzeko beharra ikusten dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak joan den azaroan jakinarazi zuen garapen jasangarria lortzeko bidean 22 ingurumen-**adierazleak** zertan zeuden iaz. Berria - Euskal Herria

Hizkuntzaren egitura **adierazleak** beti beste zerbaitera igortzen du; objektuak egitura horretan izendatuta daude; zentzua bertan seinalatuta dago. Xabier Arregi

Hitz egiten ari garen analogia-**adierazle** hauen eta lehenago (pertzepziozko) sakontasun-**adierazle** deitu ditugunen artean (ikus 1. kapitulua, II.1) begi-bistakoa da paralelismoa. Josu Zabaleta

Espazio-**adierazle** guztiak aurkituko dira, beraz, hemen: estatikoak (perspektiba, adibidez), dinamikoak. Josu Zabaleta

Enuntziatuen eta eraketa diskurtsiboen azterketak norabide guztiz kontrakoa irekitzen du: berak zehaztu nahi du enuntziatu diren multzo **adierazle** bakarrak azaldu ahal izateko hastapena. Xabier Arregi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, izenondo balioaz)

Haien oin-pausoen baltse poz **adierazlea** entzun zuten ganberan zeudenek. Felipe Juaristi

6 (izenondo eta izenlagunekin)

Lagun on batekin bide bera egin eta borondate bereko ez izatea, gaiztakeria-seinale da eta zentzu faltaren **adierazle** garbia. Askoren artean

Hirien hazkunde anarkikoa -okerreko garapenaren **adierazle** nagusietako bat-, azpienpleguaren zabalkundearekin batera gertatu ohi da. GGIa da, gure iritziz, giza garapenari buruz dugun **adierazle** orokor onena. Koro Navarro

Bateratze baldintzek ekonomia eta diru Batasunean parte hartuko zuten ekonomia desberdinen bateratze nominala lortzea zuten helburu, alegia, **adierazle** jakin batzuei buruzkoa. Iñaki Heras

Oinarrizko **adierazleak** bilatu: izenburua, atalak, azpimarratutako terminoak, lokailuak, etab. Askoren artean

Begiak modu berberean gainditzen ditu anbiguitateak irudian zein eguneroko bizimoduan: bestelako **adierazleak** baliatuz, bestelako jakitateak, eta, ororen gainetik, aldez aurretik gutxi-asko sinbolizaturik dauden eskemak erabiliz. Josu Zabaleta

BPG edo antzeko **adierazle** baten hazkundeaz neurtzen dena. Ongizate Ekonomiko Netoa (OEN), herrialdeen benetako **adierazle** bat sortzearren aipaturiko faktore negatibo eta positiboak kontuan hartzen dituen **adierazlea**. Iñaki Heras

7 adierazle ekonomiko

"Euroaren aldeko mugimenduari begiratzerakoan interesgarria da ikustea euroa gorantz ari den bitartean, euroguneko **adierazle ekonomikoak** desastre hutsa direla», azaldu zuen atzo Ken Wattret BNP Paribaseko ekonomistak. Berria - Ekonomia

Doikuntza teknikoek eta **adierazle ekonomikoek** deskontaturiko zenbatekoa 32,2tik 32,5era igo zuten. Berria - Ekonomia

8 adierazle mikrobiologiko *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Esan bezala, mikrobio adierazleak gizabanako guztien (osasuntsu zein gaixoen) gorotzetan daude kopuru handietan. **Adierazle mikrobiologiko** on batek honako ezaugarri hauek bete behar ditu: ETC-entziklopedia

9 funtzio adierazle *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Beren kemen eta heterogeneotasun setatsuaz, irrika horiek asaldatu egiten dute **funtzio adierazlea**. ETC-literatura, saiakera

Inguruarekiko hurbilpen bat behar du, inguru horretako bizilagunentzako **funtzio adierazleak** ekartzeko? ETC-prentsa

Gure hizkuntzaren lau funtzioez -**funtzio adierazle**, seinalatzaile, deskribatzaile eta argudiatzaileaz- egin dugun analisia ongi laburbil daiteke esanez ezen, nahiz eta onartu

behar den behe funtzio biak -adierazlea eta seinalatzailea- goi funtzioak presente dauden guztian eurak ere hantxe daudela beti. ETC-literatura, saiakera

Informazioan oinarrituta, eta eskualde bakoitzaren behar eta premien arabera, "hil edo biziko eremuak" izendatu ziren, babestu beharreko lurzoru-erreserbak, eta proposamenak - **funtzio adierazle** hutsa zuenak- arreta berezia jartzen zien hil edo biziko eremu industrialei. ETC-zientzia, zuzenbidea

Matematikan eta estatistika, **funtzio adierazlea** edo funtzio indikatzailea, multzo batean definitzen den funtzio bat da. ETC-entziklopedia

10 ***Herfindahl adierazle*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Ekonomian, **Herfindahl adierazlea** edo Herfindahl-Hirschmann adierazlea (HHI) merkatu edo sektore ekonomiko bateko banaketaren aniztasun adierazle aniztasunerako neurria da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adierazia eta adierazlea** (5); **adieraziaren eta adierazlearen** (4); **adierazle argia** (8); **adierazle argia da** (3); **adierazle argiena** (4); **adierazle bat** (8); **adierazle bat da** (4); **adierazle baten** (3); **adierazle batzuk** (7); **adierazle batzuk ere** (3); **adierazle berriak** (3); **adierazle da** (20); **adierazle dela** (10); **adierazle dira** (7); **adierazle direla** (4); **adierazle ere** (3); **adierazle eta** (6); **adierazle ezin** (4); **adierazle garbia** (6); **adierazle garbia da** (3); **adierazle garbiena** (4); **adierazle gisa** (9); **adierazle guztien** (3); **adierazle hori** (4); **adierazle horiek** (8); **adierazle horren** (6); **adierazle izan** (5); **adierazle nagusia** (3); **adierazle nagusiak** (3); **adierazle nagusitzat** (3); **adierazle ziren** (5); **adierazlea da** (5); **adierazlea ere** (4); **adierazlea eta** (6); **adierazlea eta adierazia** (6); **adierazleak ere** (3); **adierazlearen arteko** (3); **adierazlearen eta** (11); **adierazlearen eta adieraziaren** (9); **adierazleen eta** (4); **adierazleen eta adierazien** (4); **adierazleetako bat** (6); **adierazlerik argiena** (6); **adierazletzat jo** (3); **analogia adierazleak** (4); **baten adierazle** (8); **baten adierazlea** (3); **beste adierazle** (8); **bi adierazle** (6); **bi adierazle horiek** (3); **da horren adierazle** (4); **diren adierazle** (5); **eta adierazle** (7); **eta adierazlea** (6); **eta adierazlearen** (6); **eta adierazlearen arteko** (3); **eta horren adierazle** (3); **horren adierazle** (50); **horren adierazle argia** (3); **horren adierazle argiena** (3); **horren adierazle da** (6); **horren adierazle dira** (3); **horren adierazle garbiena** (3); **horren adierazlerik** (7); **horren adierazlerik argiena** (5); **nortasunaren adierazle** (7); **sakontasun adierazle** (4)

---

adierazmaila *iz* adierazte maila.

Egungo bertsolaritza hainbat **adierazmaila** edo eremutan agertzen da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gaurko bertsolaritzaren maila gorena, erdigunea, ikusgarri edo ikuskizun moduen duen **adierazmaila** da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertsolaritzaren **adierazmaila** ezberdinak bereiztu ditugu I. kapituluan: jendaurreko ikusgarria, talde-jarduera ludikoa, eskolako jarduna eta hedabideetakoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertsolaritzaren beste **adierazmaila** bat talde-jolasa da, tokian-tokiko bertso-eskoletan garatzen den ahozko jardun ludikoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

adierazmen *iz* adierazte ahalmena.

"**Adierazmen** handiko hitzak, zehatzak eta ongi jarriak" dituzte, Dorronsoren arabera, Zulaikarena bezalako poemek. Berria - Kultura

---

adierazmolde *iz* adierazteko modua.

Dardarazko duda bat zuen orain, izu-laborrizkoa zirudiena, **adierazmoldearen** ezaugarri nagusia. Koro Navarro

Modu berezian baina beti modu berean erabiltzen diren **adierazmolde** horiek. Koro Navarro

Elipsi eta **adierazmolde** hunkigarriak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ahotsa bat-batean aldatzen zitzaion, ezin erabaki dardarti batetik (haren bizitasunak erabat sorgortua zirudienean), trinkotasun indartsu moduko batera, **adierazmolde** bortitz, astun, presagabe, eta soinu-hutsera, ebakera gutural, bizigabe, orekatu, eta ezin hobeto modulatura. Koro Navarro

Lekukoak esandakoaren interpretazio gaizto bat baino ez da L'Etoileren **adierazmolde** orokorra. Koro Navarro

Ahozko **adierazmoldearen** eta idatzizkoaren arteko aldeak, aintzat hartzeko modukoak izanik ere, ez dira jeneralean uste den bezain sakonak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Horiek beren idatzietan sentimendu handiko mistika kristozentriko bat adierazten zuten, eta neurri handi batean profetiko-bisionarioa zena, bere **adierazmolde** biziki poetikoan Minnesangaren eragina nabari zuena, hau da, Erdi Aroko gorteko zaldunen lirika amodiozkoarena. Joan Mari Lekuona

Kode Zibilean ditugu garai honetako lege euskarri nagusiak eta oinarri gorenak, segurtasun juridiko delakoaren **adierazmolderik** bikainenak. Andres Urrutia

Kultur **adierazmolde** bakoitzari egozten zaizkion ezaugarriak eta ondorioak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

adierazpen *(ETCn **55.937** agerraldi; orobat **adirazpen** g.er.)* **1** *iz* aditzera ematea, azalpena; jendaurrean zerbait adierazteko egiten den izkribua.

-Bada, horra lehen **adierazpena**. Pako Aristi

Argi dago, bestalde, eta ez du hitz askoko **adierazpenaren** premiarik, zeinen atsegin zaizkigun barneko hiru leihoak, egoki moldatuak, tarte berdinekin, alde bietara bi eta erdian bat, bainugela argitzeko. Imanol Unzurrunzaga

Zeren Aristotelesen iritziz ez dago unibertsalki balio duen ongi moralaren **adierazpenik**. Askoren artean

Edota umearen aurkako **adierazpena** balitz bezala, gauez lorik egiten ez duzulako nekatuta zaudela aitortzea. Arantxa Iturbe

Alegoriazko sinbolismoa kontzeptu batetik abiatzen da, gehiago oraindik, irudi egiten den edo irudi egin nahi duen kontzeptu bat da; nik diodanak, berriz, irudiari balioa emango dion zentzu baten bila dihardu irudian, honek bere **adierazpen** osoan bizirik eta berez libre egon behar duelarik. Josu Zabaleta

20.Zina promesari erantsitako **adierazpena** da, eta esan nahi du, agintzen duenak uko egiten diola Jainkoaren errukiari, ez betetzekotan. Esteban Antxustegi

Globalizazioa kapitalismoaren zabalkunde espazialaren **adierazpen** da, globoko muga guztiak gainditurik; baina, aldi berean, eta ororen gainetik, muga fisikoak eta arautuak saihesten, apurtzen, eta, azkenik, ezabatzen ditu, muga horiek kapitala mundu osoan metatzea eragozten baitute. Koro Navarro

Enrikek inoiz ez zuen egiten aitorpen kutsuko **adierazpenik**. Iñaki Iñurrieta

Ari ahala ari izana nintzen erredakzioan, delako Felicitas/Amagoiaren **adierazpenak** itxurako erreportaia batera ekartzen. Aingeru Epaltza

Behin eta berriz errepikatzen ziren bateko eta besteko tira egite horiek, maitasun irakinaren **adierazpenekin** eta eguneroko txikikerien kontaketarekin batera. Xabier Mendiguren Elizegi

Adierazpen horrek jendearen arrangurak ematu zituen. Juan Garzia

Gol begira geratu zitzaion, **adierazpenik** gabe. Joanes Urkixo

Nozdrioven **adierazpenak**, lekukotasunak eta baieztapenak hain gertatu ziren funtzionarioen usteen kontrakoak, ezen behea jo baitzuten haien hondar susmoek. Jose Morales

Beharrezko dela uste duzu, **adierazpen** horren laburpena egin dezadan, Lurie irakaslea? " Oskar Arana

Valvo, zuhur izan ohi baita eskuarki bere **adierazpenetan**, suharxeago ageri da paziente batzuen emaitza pozgarrienetariko batzuen berri ematean: Xabier Olarra

Mundua gizaki arruntarentzat zela argudiatuko zuen; artea apaingarri bat besterik ez dela, giza bizitzaren gailurrean ezarria; ez dela bizitzaren **adierazpen**. Anton Garikano

Jarraian, koadrotxo batean, epigrafe modura, Hollywoodeko zuzendari baten **adierazpenak** datoz: Patxi Iturritegi

Parte-hartzaileak sutan baitaude, Elizak azken egunotan egin dituen homosexualitatearen aurkako **adierazpenekin**. Joan Mari Irigoien

Gertatutakoaren berri ematen zuen behin-behineko txostena zen eta, haatik, etxean lan egiten zutenen **adierazpenak** eransten zituen azkeneko orrialdeetan. Aritz Gorrotxategi

Tradizio ezak hondatu, ahuldu, mehetu egingo luke hizkuntza, hala nola abitaminosiak gorputzaren azala; baliabi-derik gabe utziko luke hartara, hizkera desberdinak sortzeko aukerarik gabe; errealitatearen **adierazpen** konplexurako gaitasunik gabe, hitz batean. Bernardo Atxaga

Hori guztia esan zion, besterik gabe ezezkoa bota ordez, eta berehala damutu zen, behar baino **adierazpen** gehiago eta luzeagoak egiteko hartzen ari zen ohituraz jabetuta. Ramon Saizarbitoria

Estatu-buru izatera iritsi zen, eta haren **adierazpenak** aurrerantzean herri-arazoei buruzkoak izan ziren, batez ere. Iñaki Mendiguren

Bere hitzen baten, bere esakune edo **adierazpenen** baten zain nago, baina ez dio ezer. Joseba Sarrionandia

Alferrik izan dira eman nahi izan dizkiodan **adierazpen** eta xehetasun guztiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Tira ba, bi **adierazpenen** arteko berdintza da ekuazioa, non haietariko batek, gutxienez, ezezagun bat baitu. Jon Muñoz

Venus lumaduna edo Cupido kapaz jantzia agertzen badira, gorputz atalen liraintasun eta proportziorik bikainenaz ere, ez dira, agian, begiak minduko, bai, ordea, begien bitartez arima, bera baita **adierazpen** haien hartzailea. Imanol Unzurrunzaga

Katalinak besta eta espantu hartu zuen umearen aharrausia, sekulako **adierazpena** iduri. Aingeru Epaltza

Lehengusu bat zuen Hego Afrikan maitasunezko gutunak idazten zizkiona, eta zinpeko **adierazpen** bat bidaliko ziola eskaini zion. Koro Navarro

Adierazpen hori ez da oraindik nahikoa determinatua aurkeztutako galdekizunaren zentzu osoa egokiro ezaugarritzeko. Ibon Uribarri

Barka ezazu zuk sorrarazten duzun oinazearen **adierazpena** : ez dio inolaz ere kalterik eginen nire mendekotasun guztizkoari. Jon Muñoz

Geldialdi bat egin zuen, bere **adierazpenak** sakonki hausnartzeko ahalbidea ematearren. Mirentxu Larrañaga

Oso gutxik dakite azken fase hori, artista-garapenaren **adierazpen** hori, hondamendizko galera batek eragina dela. Xabier Olarra

Ez zen egia, zure irudimenaren **adierazpena** baizik. Rafa Egiguren

Badirudi hori gertatu dela, kontuan hartzen badira arduradun politikoek behin eta berriz gai honen inguruan egin dituzten **adierazpenak** . Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lehenak Radio Requetetik jasotako **adierazpen** bat irakurtzeari ekin zion: Marriot kafea edaten ari zen oso hurrupa ttipietan. Lutxo Egia

Tristuraz betetzen nau, Mr Worthing, zugandik halako **adierazpenak** entzuteak. Antton Olano

Instalazioa eta desinstalazioa, biak izan daitezkeela neurri bereko **adierazpenak** , alegia. Hasier Etxeberria

Jada bazekienaren baieztapena zen; bere senaren **adierazpen** hura ez zen irudimen sukartsu baten fruitu. Harkaitz Cano

Geroztik, Donostyk - hainbat artikulu argitaratu baitzituen jaiari buruz Donostiako aldizkari eta egunkarietan - era askotako oharrak eta **adierazpenak** egin zituen Danborradaren jatorriari, zentzuari eta historiari buruz. Askoren artean

Txunditu egin baininduen haren **adierazpenaren** segurantziak, besterik ez; eta horrexegatik galdetu nion: izan al zara medikuarenean? Joxe Austin Arrieta

Ez zuten **adierazpen** gehiago egiteko beharrik. Aritz Gorrotxategi

Orduan, honako **adierazpen** hau irakurri zuen ahots goraz: Karlos Zabala

Kexa aurkezten lehenbizikoa Melanie Isaacs andereñoa izan da, arte dramatikoetako programako ikaslea, eta esku artean duzue guztiok hark egindako **adierazpenaren** kopia. Oskar Arana

Aitortzen duzu matematikaren eta zientzia enpirikoen alorraz kanpo, sekulako eremua geratzen dela gaur-gaurkoz zientziaren **adierazpenak** oraindik iristen ez direna. Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Oinarri politikoei buruzko **adierazpen** bateratua hitzartzeko lana aurreratua duzue, ezta? Berria - Euskal Herria

Eta idatzi ere, hain zuzen, horrexegatik idazten dut: **adierazpen** linguistikoa askoz ere polikiago doalako. Ana Urkiza

Bertsolaritzaren **adierazpenik** espontaneoena da berau, eta, beste aldetik, bertsolaritzaren biharko eragileak sortuko dituen oinarrizko egitura. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ustekabe **adierazpen** itxurati hark ez zuen Husaini oharkabean utzi, eta jarraitu egin zuen: Patxi Zubizarreta

Ikara egiten nuen irudimenean ahalmen sentikorra eta kontzientea, eta, baita ezpainen laguntzarik gabe ere, **adierazpen** moralaren gaitasuna egozten nienean. Koro Navarro

Ostalariak abiatzeko prest zeuden jadanik, eta adiorako ardoa laudorio eta adiskidantzazko **adierazpen** handien artean edan ostean, ibiltzeari ekin zioten. Agustin Otsoa

Sexualitatearen **adierazpen** praktikoa da erotismoa, bakoitzak gure sexualitatea bizi dugun modua; bakoitzaren desioak, fantasiak, nahiak, keinuak, jokaerak, musuak eta miazkatzeak, laztanak, jolasak, gustuak eta zaletasunak sexu kontuetan. Luis Elberdin

Esaldi hark ez ninduen larrituko, baldin eta doinu hura eman izan ez balio; doinu berria zen hura, dardara pittin batekin, zalantzatia, ezohikoa, Idoiak ohituta nindukan **adierazpen** erabakitsu eta oldarkorren aldean. Juan Kruz Igerabide

Besoak zabaltzen zituen Kellyk **adierazpen** aldrebesa esaten bazenuen, come on, mesedez! batekin erreматea emanez. Iñaki Zabaleta

Agertzen diren **adierazpen** usuenak "ongi bizi", "kausitu" edo "ongi heldu" dira; edota "adiskidetzan izan", "larrialdi artean, lasai", "edertasuna kontenplatu", etab. Askoren artean

O! Ai! Ene! Aiei! Helas! Doluko auhenak, alarauak, arrangura **adierazpen** urragarriak, negargarriak: hildakoentzat atsekabegarria. Iñaki Arranz

Estilo liburua-ren agindua da, vasco/basque **adierazpen** zuzenak direnean euskal itzultzeko. Iñigo Aranbarri

Horra non eskertzak berriz hasi diren, baina ez ziren jadanik arestian bezain bihotz-erdiragarriak: premiak ondorio benetakoa sortu zuen, ondorio handia; gainerakoa ez zen esker oneko eta harridurazko **adierazpen** soil bat baizik, balio urriko dohainen truk. Jon Muñoz

Sinale garai horretan otea loretan egoten dela, bestela ez bailuke zentzu haundirik: "Orroko or goyan otia, dena lorez betia" delako **adierazpen** bixi-bixi presenteko horrek. Patziku Perurena

Harry hanpatasunezko eldarnio betean dago, **adierazpen** enigmatiko horiek harropuzkeriaz jaulkitzen bere ahotsa entzuteko atsegin hutsagatik, eta ez diot zentzurik ikusten elkarrizketa luzatzeari. Oskar Arana

Aldi berean aroa hondamendi natural, ausiabartza, lurrikara eta uholdeek konbultsionaturik eta izularriturik aurkitzen da, baita heriotza beltzaren espektro lazgarriak ere, sarraskia eginez baitabil Europan zehar alde batetik bestera, zeinen **adierazpen** plastikoa aurkitzen baita dantza makabroaren pintura-motibo obsesiozkoan. Joan Mari Lekuona

Jendaurreko emanaldien **adierazpen** berezi bat bertsolarien arteko sariketa edo txapelketena da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Denbora hitz egiten eta bilerak ospatzen ematen dute, eta hedabideetan ordu eta orri ugariz jasotzen dituzte haien esanak, beti zer egingo duten, egingo luketen, egitea lortu behar den edo egin behar litzatekeen esplikatzera mugatzen diren **adierazpen** astunak direnak. Pako Aristi

Gelditu ondoan, eriaz beheko aldea seinalatzen zuen Mariren **adierazpen** alaiak arreta deitu zion, eta soaz xerkatu zuen tokia. Elena Touyarou

Herri bakoitzean, subiranoa nor izan eta horren borondatearen **adierazpen** ospetsua da legea, guztion onurako den objektu bati buruzkoa. Andres Urrutia

Oisin Golen alboan zegoen, eta honen besoa haren sorbalda gainean, **adierazpen** babesgarri batean. Joanes Urkixo

Ezker-eskuin darabil burua, sineskaitz egoteaz gainera erne ere badagoenaren **adierazpen** misteriotsuaz. Pako Aristi

Zeren, hori jarraian egin ahal izana gobernariaren borondatearen zeinu argia eta **adierazpen** nabarmena da, legean, ediktuan edo dekretuan subiranoaren botere gorena deuseztatzen duen ezer ez baldin badago. Esteban Antxustegi

Txuletagintzan, trinkotzeko gaitasuna ez ezik, nonahi **adierazpen** trinko abstraktuak ikusteko joera garatuko dute. Iñaki Iñurrieta

Beraien **adierazpen** zehatzik gabe, nola ziurtatu beraien onarpena? Joxan Elosegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Linguistikaren gaia, lehenik, giza mintzairaren agerpen guztiez dago osatua, herri basatien agerpenez nahiz nazio zibilizatuen agerpenez, edota antzinako garaietan edo garai klasikoetan gertatutakoez, aldi bakoitzean kontuan harturik hizkera "zuzena" eta "ondo hitz egitea" ez ezik, **adierazpen** forma guztiak. Isabel Arrigain

Kirol-ontzizaleena bezalako kapela zuen buruan, bekokitik atzera eraginda, eta entzuten ari zen kontakizunak **adierazpen** -olatuak igortzen zizkion etengabe aurpegira, sudur, begi eta ezpain ertzetatik. Irene Aldasoro

Baina, tamalez, ordurako hilik zegoen haren etorria, agortuak zituen **adierazpen** -baliabide guztiak, eta bere azken urteetako jarduera aurreko lanen erreprodukzio klonikora mugatzen zen, besterik ez zitzaion-eta burutratzen. Patxi Iturritegi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garai hartan, hain zuzen, antzerkia zen literatura-**adierazpen** nagusietariko bat, komedia zein tragedia. Juan Garzia

Zeren ospakizun horiek badakigu zer diren, adiskidetasun **adierazpenak** arauzko dira, eta pailazo prestu hari, proiektoreen azpian izerdia gogotik bota ondoren, sarri-sarri betebeharra zegoen garagardo pitxerra. Josu Zabaleta

Biharko egunkarietan lazgarri iritziko diote gaur gertatu denari... eta hainbat dolu **adierazpen** zabalduko dira bazter guztietan... baina bihar bertan antzeko egoera batean egoterik ez du inork saihestuko. Paddy Rekalde

Badakigu Euskal Herrian aski guneko kultur **adierazpena** dela bertsolaritza. Andoni Egaña

"Hiltzea berez gertatzen denean, natural egitate bat baino ez da, baina norbederak bere heriotza hautatzean, denik eta askatasun **adierazpenik** handiena du gauzatzen" zioen poetak. Jose Angel Irigaray

Eta lotsa keinuak eta laztanak, eta baita zorabioak ere ikaskide baten amodio **adierazpena** entzutean. Pello Lizarralde

Stella deseroso dago bere ahizparen emozio **adierazpenarekin** . Xabier Paya

-Bere ospea kolpe ondoreneko telebista **adierazpenekin** hasi zen. Pako Aristi

Ugalketara zuzentzen ez den sexualitate oro - homosexualitatea, masturbazioa - itotzea da helburua, eta sexu **adierazpen** guztiak ezkontza ugalkorraren barrutira mugatzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zer eta maitasun **adierazpen** bat. Xabier Mendiguren Elizegi

5 *adierazpen algebraiko* ik **adierazpen aljebraiko**.

6 ***adierazpen aljebraiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **52** agerraldi)*

Kasu berezia da **adierazpen aljebraikoa** , eskuarki polinomioekin erabiltzen dena. **Adierazpen aljebraikoa** zenbakien eta hizkien nahastura da. ETC-entziklopedia

Oinarrizko aljebra, **adierazpen aljebraiko** eta ekuazioen hasierako ikasketa eta behe mailako matematikako ikastaroetan irakasten den aljebraren zatia dena. ETC-entziklopedia

Ez al da pentsatzen ilara bat **adierazpen aljebraiko** batetik eratortzean? ETC-literatura, saiakera

Batzuetan, modu matematikoan adierazi ahal izango da (hala komeni da), hipotesian esku hartzen duten aldagaiak erlazionatzen dituen **adierazpen aljebraiko** baten bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hurrengo kapituluetan ikusiko dugun moduan, **adierazpen aljebraikoak** sinplifikatzearren, aldagaiak lagineko batezbestekorako desbiderapenetan neurtzen ditugu batzuetan (balio zentratuak). ETC-zientzia, zuzenbidea

Demagun pultsua x noranzkoan hedatzen dela u abiaduran; zein da pultsuaren **adierazpen aljebraikoa** ? ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrela, Gauss-en legea eremu elektrikoaren bal ioaren **adierazpen aljebraiko** bihurtzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zenbaki-datuotara atzitu daiteke zuzenean irudian bertan, geroxeago kalkuluetan edo **adierazpen aljebraikoetan** erabiltzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

A4 - Plano-sortaren **adierazpen aljebraikoa** ezagutzen dut. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 ***adierazpen aritmetiko***

Beraz, proportzioaren erabilera zuzena, Vitruvioren ustez, ordinatio, ordenazioa, deitzen den ezaugarri jadanik arkitektonikoan ulertu behar da: proportzioaren **adierazpen aritmetikoa** , modulu jakin batetik abiatutako kantitate konkretuetan. Santiago Iruretagoiena

8 ***adierazpen askatasun***

Eta zer da **adierazpen askatasuna** ? Erretagoardian besoak gurutzatuta gelditu eta ekintza gizonek egiten duten guztia gaizki dagoela esateko aukera bat besterik ez da. Ramon Etxezarreta

Gainera ETAri bideo elektoral batean lekua uztea **adierazpen askatasuna** iruditzen al zaik? Pako Aristi

Adierazpen askatasuna , informazio eskubidea, hizkuntz eskubidea Ðmilaka euskaldun geratu ziren zeukaten periodiko bakarra gabeÐ norberaren segurtasunerako eskubidea.. Berria - Euskal Herria

Jacques Chiracek **adierazpen askatasunaren** defentsa sutsua egin zuen orduan. Berria - Mundua

Baina askatasun kaltegarri eta gaitzesgarri horiek bezala, sistema berberaren fruitu dira nolabait beste askatasun onuragarri batzuk; hain zuzen ere biziki estimatzen ditugun "kontzientzia askatasuna, **adierazpen askatasuna** , elkartzeko askatasuna, elkarteak osatzeko askatasuna edota enplegua". Iñaki Heras

Hau giza eskubideekin eta **adierazpen askatasunarekin** batera demokraziaren benetako espiritua da (zoritxarrez, batzuetan hau oraindik bortxatu egiten da Europako zenbait aldetan). Edorta Jimenez

Politika mailan baita **adierazpen askatasuna** okertuz doaz. Ramuntxo Etxeberri

Esaterako, izan genuen presidente bat, Jaime Lusinchi, **adierazpen askatasunaren** oso kontrakoa. Pako Aristi

Ioiok komedia biribildu gura du eta kiroldegiko tunelean **adierazpen askatasunaren** gainean dihardu. Urtzi Urrutikoeetxea

Askatasun adierazpen sarrien ke zuriak salatzen du, sarri, **adierazpen askatasunik** ezaren su mina. Joxerra Garzia

Kaka bazkatzetik bizi dira eta birziklaketa nazkagarri horri deitzen diote **adierazpen askatasuna** eta zeregin demokratikoa. Hasier Etxeberria

"Esne behiaren sindromea" irakurtzen dugu Joxerra Garziaren metaforismo batean, non **adierazpen askatasuna** eta askatasun adierazpena kontrajartzen dituen, eta izenak euskaltegietako irakasleek honez gero maiztu duten adibidea ekartzen digu gogora: esne behia versus behi esnea. Iñaki Arranz

1868ko "iraultzaren" ondoren (Isabel II.aren destronazioa, Alfontso XII), **adierazpen askatasunarekin** , positibismoa liberalismoari asoziatua agertu da, idealismoa eta espiritualismoa erregimen zaharraren aliatutzat jotzen ziren bitartean. Joxe Azurmendi

9 ***adierazpen boolear*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Normalena da fitxategiko eremuetan **adierazpen boolear** arbitrario bat edukitzea hautapen-baldintza gisa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baldintza hori **adierazpen boolear** baten bidez definitzen da, harmenak bezala. ETC-zientzia, zuzenbidea

B **adierazpen boolearra** , x edozein aldagai, t edozein termino eta? edozein formula izanda, esan honako baieztapen hauek egiazkoak ala faltsuak diren. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 ***adierazpen egile*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Helburua da jakobinismo frantziarraren ildoko **adierazpen egile** edo jarrera hartzaile bakoitzari tantoak ematea. ETC-prentsa

Hala ere, desadostasuna **adierazpen-egilearen** axolagabekeriari badario, horrek beste kontratugileak izandako kalteak ordaindu beharko ditu, azken horrek okerra ezagutzen zuela edo ezagutu behar zuela frogatzen ez duen bitartean. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 ***adierazpen erregular*** *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Patroien osagaiak token izenarekin ezagutzen dira, **adierazpen erregularren** bitartez definitzen dira, eta honako hauek dira espresio erregular erabilienak: ETC-zientzia, zuzenbidea

Erregela bakoitzak eredu bat du ezkerrean (**'adierazpen erregular'** ere baderitzo), eta ekintza bat eskuinean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehen egoera tokenen eratze edo analisi lexikoa da, prozesu honetan sarrerako katea **adierazpen erregularretan** definitutako esanahia duten sinboloetan banatzen da. ETC-entziklopedia

Izan ere, BNF-z idatzitako gramatikak oso errepikakorrak dira, errepikapenak definitzeko ezin direlako **adierazpen erregularretan** erabili ohi diren Kleene izarra bezalako eragiketak erabili. ETC-entziklopedia

Oso erabilia da **adierazpen erregularretan** eta Stephen Kleenek (1909-1994) testuinguru honetan sartu zuen benetako automata baten ezaugarri izateko. ETC-entziklopedia

Konpiladoreetan eta analizatzaile lexikaletan, **adierazpen erregularrekin** patroiak identifikatzeko erabiltzen dira. ETC-entziklopedia

Itzulpen-unitateak iragazteko aukerak: osatu gabeko itzulpenak, sarrera guztiak, bilaketa (**adierazpen erregularrekin** , bilatu eta ordeztu,...) ETC-entziklopedia

12 ***adierazpen geografiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **79** agerraldi)*

Adierazpen Geografiko Babestua (AGB) Europar Batasunak erregulatzen duen kalitate sor-marka bat da, gainera, izen onaren jabe izateak produktuari abantailak ematen dizkio. ETC-entziklopedia

Renan oso kontziente zen Europa politiko baten beharraz, artean **adierazpen geografikoa** eta Estatu aurkariek osatzen zuten mosaiko bat besterik ez baitzen. ETC-literatura, saiakera

Haien gidatzeko besaulkiaren ondoan, beste bi eserleku bazeuden, haiekin solas egiteko ezarrita zeundenak, **adierazpen geografiko** guztiak entzuteko parada ematen zigutenak eta batez ere goiko saltsatik aparte egoteko aukera noizean behin baliatzen genituenak. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, Nafarroan atzeman egin ziren behi eroen kasu batzuk, nahiz eta bat ere ez izan **Adierazpen Geografiko** Babestuan erregistratua. ETC-literatura, saiakera

Euskal Okela, Eusko Labelaren bereizgarria izateaz gain, **adierazpen geografiko** babestu (AGB) moduan onartua dago jatorri deiturei buruzko Europako araudiaren esparruan. ETC-prentsa

Nafarroako sor-markako ardoak ekoizten dituzten herriak Espainiako Mahastiak **adierazpen geografikoan** sartzea erabaki du Nafarroako Gobernuak, lehiarako gaitasuna handitzeko. ETC-prentsa

1988. urteaz geroztik egiten dituen neurketetan Tuterako Orburua izeneko Babesturiko **Adierazpen Geografikoak** ez du halako kopururik ikusi. ETC-prentsa

Gernikako Piperra sor-markak beharrezko lege babesa izango du hemendik aurrera Europa osoan, **adierazpen geografiko** babestua izatea lortu baitu. ETC-prentsa

Zainzuriak biltzeko kanpaina amaitu berri da Nafarroan, eta Nafarroako Zainzuriaren **Adierazpen Geografiko** Babestua elkartea? gustura? gelditu da jasotako uztarekin. ETC-prentsa

Adierazpen Geografiko Babestua duten produktuek ez dute izen bereko lehiakiderik izango Japonian. ETC-prentsa

Aurreko artikuluko zigor berberak ezarriko zaizkio, baimenik gabe, nahita eta legez babesturik dagoela jakinda, ekonomia-trafikoan sor-marka edo **adierazpen geografiko** bat erabiltzen duenari. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jatorri deituretan, deitura espezifikoetan edo **adierazpen geografiko** babestuetan sartzen diren produktuen izakinen kopuru-edukiera eta ekintza osagarriak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adibide argiena jatorri-deiturak, **adierazpen geografiko** babestuak edo bermatutako ohiko egitea izango lirateke. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 *adierazpen logiko* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Hautatu-proiektatu-konbinatu kontsultetan, erregela orokorra da kontsultaren **adierazpen logikoan** TRUE ematen duten tupla-konbinazioak bakarrik hautatuko direla. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adierazpen logiko baten sinplifikazio sistematikoa egiteko, honako pauso hauek eman behar dira: ETC-zientzia, zuzenbidea

Matematikak berezko dituen sinboloak agertu arren, teoremen frogetan eta idazkeran oso mugatua da **adierazpen logiko** -formalaren erabilera; horretan ere nabaria da aurreko testuekiko aldaketa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hemen, ekintzaren aldagai logikoa ezin da **adierazpen logiko sinple** batekin erakutsi, baizik eta denboragailu operadorearekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mota honen balioak **adierazpen logikoa** da, hala nola, "True" edo "False". ETC-entziklopedia

14 *adierazpen matematiko*

Funtsezkoa da haien zeregina: haiei esker, anbiguotasunik gabe idatz daitezke **adierazpen matematikoak** . Jon Muñoz

-Batuketak, kenketak, biderketak, denetik, eta oso litekeena da gainera, **adierazpen matematikorik** ez duten beste funtzio batzuk ere izatea. Josu Zabaleta

15 *adierazpen perpaus*

Osagai-egitura eta atal formaldatzailea biltzen dituen gramatikarik errazena eratzen saiatzen garenean, ingeleserako, muinean **adierazpen perpaus** , soil, aktiboak aurkitzen ditugu (izan ere, ziurrenik hauetariko talde mugatu bat), eta gainerako perpaus guztiak formaldakitzat deskriba daitezke besterik gabe. Itziar Laka

16 *adierazpena egin*

Orain dela hiru urte Euskalduna jauregian izan zen Euskaltziandiaren azken biltzarrean, euskalkien inguruko mahai-ingurua antolatu genuen, eta arrakastatsua izan zela ikusita, Jagon sailak **adierazpena egiteko** konpromisoa hartu zuen. Berria - Euskal Herria

Agurtu egiten zaio berorri, Presidente jaun eta Antso Jakitunaren Testamentuaren Albazea: abuztuaren 13ko berorren eskutitza hartu izanaren **adierazpena egiten** diot; delako hori irakurri, hausnartu eta barneratu egiten dut, eta kablez hartu nituen instrukzioekin bat, ez-ikusia egiten dut, Luis Ortuzarri buruz berorrek esaten duenaz. Edorta Jimenez

Legebiltzarrak **adierazpena egin** eta gero, Batasunak alde egin zuen Parlamentutik, eta indar korrelazioa eskuina aldera mugitu zen. Berria - Euskal Herria

Sinn Feinek duela aste batzuk ohartarazi zion Batasunari IRAk atzo eginiko **adierazpena egingo** zuela. Berria - Harian

17 *adierazpenezko perpaus* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Starren behartuta geunden **adierazpenezko perpaus** labur soilak idaztera. ETC-literatura, saiakera

Literatura-tradizioaren arabera, adizkera alokutiboak **adierazpenezko perpaus** nagusietan erabili behar dira, ez mendekoetan. ETC-entziklopedia

18 *aurpegi adierazpen* *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Aurpegi adierazpena pertsona edo animalia batek aurpegiz, zehazkiako begiak, ezpainak, sudurra, bekokia eta masailak erabiliz egiten dituen imintzio eta keinu bidezko adierazpen eta hitzik gabeko komunikazioa da. ETC-entziklopedia

Emozio baten **aurpegi adierazpena** sentitzen duenarekin bat ez egin ahal duela badaki. ETC-prentsa

Pertsonaia nagusiek txalogarri dihardute, indar eta erritmo handiz, arnasestuka, **aurpegi adierazpenei** eta gorputz higidurari oreka bikainean eutsiz. ETC-prentsa

30 zentimetrora, umeek ongi xamar bereizten dituzte **aurpegi-adierazpenak** , baina ez aurpegia bera. ETC-prentsa

Harreman sozialetan dute gabezia sindromea duten pertsonek: adibidez, hitzik gabeko komunikazioko jarreretan: "Ikusmenezko hizkeran, **aurpegi adierazpenean** , gorputz adierazpenean eta abar". ETC-prentsa

Elkar arteko begiradei esker nola doan haurra ikasten munduari arreta jartzen; zaintzailearen **aurpegi-adierazpenaren** bidez nola doan bereganatzen bai hizkuntzaren sinboloa bai bestearen aldarte emozionala ere. ETC-literatura, saiakera

Bekatu larriagoa da besteenganako mesprezua erakustea zeinu batzuen bitartez, hala nola, ekintza, hitz, **aurpegi-adierazpen** , barre-algara eta bestelako irainen bitartez. ETC-literatura, saiakera

Hala, gure komunikazioaren parte handi bat keinuka, buru-makurka edo **aurpegi-adierazpenekin** bideratzen genuen. ETC-literatura, saiakera

Zer egin argazkiekin: aztertu pertsonak pairatu dituen itxura-aldaketak (sudurra, begiak, ahoa, aurpegia, **aurpegi-adierazpena** , gorpuzkera, postura eta abar). ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikusmen kontaktuan, **aurpegi-adierazpenetan** , gorputz-jarreren eta keinuen bidez komunikatzeko arazoak dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

19 *gene adierazpen*

Harrezko, ikertu nahi nuena zera zen: ea bakterioen baitako **gene-adierazpenaren** erregulazioan atzemandako printzipioek zer neurritan funtzionatzen zuten organismo konplexuetan; enbrioi-garapenean zehar, kasurako. Juan Garzia

20 *gerra adierazpen*

Bizirik iraun zuten kooperatibako langileek ' **gerra adierazpena** » egin zioten Estatuari: gerrilla sortu zen. Berria - Mundua

21 *gorputz adierazpen*

Etenaldi horretan Peter Roberts mimoarekin **gorputz adierazpenari** buruzko ikastaroa egin zuten, beste ikastaro batzuekin batera. Berria - Kultura

Goizean goizetik bertso gosariak, hitzaldiak Bolognako prozesua, Euskal Ikasleen Eskubide Karta, Euskal Herriko Historia..., tailerrak dantza, txalaparta, sexualitatea, **gorputz adierazpena** ..., jolasak eta bideo emanaldiak izan ziren, besteak beste Berria - Harian

" **Gorputz adierazpena** eta keinu hizkuntza lantzen ditugu; batetik, haur gorren ikaskideek keinu hizkuntza ikasteko eta bestetik, komunikatzeko ez direla bi hizkuntza behar uste dugulako», nabarmendu du Ulertuzeko teknikari Amagoia Osinaldek. Berria - Euskal Herria

22 *idatzizko adierazpenaren nahasmendu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Idatzizko adierazpenaren nahasmendua ideiak idatziz adierazteko gaitasunen eskasia ezaugarritzat duen ikaskuntzaren nahasmendua da, ez adimen-urritasunak ezta eskolatze urriak ere azaldu ezin dezaketena. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adierazpen askatasuna (141); **adierazpen askatasuna bermatzeko** (5); **adierazpen askatasuna eta** (21); **adierazpen askatasuna urratzen** (4); **adierazpen askatasunak** (12); **adierazpen askatasunarekin** (4); **adierazpen askatasunaren** (113); **adierazpen askatasunaren alde** (10); **adierazpen askatasunaren aldeko** (18); **adierazpen askatasunaren aurkako** (20); **adierazpen askatasunaren eta** (12); **adierazpen askatasunaren izenean** (5); **adierazpen askatasunaren kontrako** (4); **adierazpen askatasunari** (22); **adierazpen askatasunari buruz** (4); **adierazpen askatasunaz** (4); **adierazpen askatasunerako** (5); **adierazpen askatasunerako eskubidea** (4); **adierazpen askatasunik** (7); **adierazpen asko** (6); **adierazpen bat** (46); **adierazpen bat egin** (4); **adierazpen batean** (4); **adierazpen batek** (7); **adierazpen baten** (12); **adierazpen baten bidez** (5); **adierazpen bateratua** (16); **adierazpen batzuen** (7); **adierazpen batzuetan** (9); **adierazpen batzuk** (13); **adierazpen batzuk egin** (4); **adierazpen bera** (6); **adierazpen bezala** (4); **adierazpen edo** (5); **adierazpen egin** (7); **adierazpen eta** (47); **adierazpen eta informazio** (7); **adierazpen gisa** (6); **adierazpen gogorrak** (15); **adierazpen gogorrak egin** (11); **adierazpen guztiak** (16); **adierazpen guztien** (4); **adierazpen haiek** (5); **adierazpen haien** (4); **adierazpen hau** (20); **adierazpen hauek** (28); **adierazpen hauek egin** (11); **adierazpen honek** (5); **adierazpen honetan** (14); **adierazpen honetan jasotako** (6); **adierazpen hori** (35); **adierazpen hori ez** (4); **adierazpen horiei** (6); **adierazpen horiek** (161); **adierazpen horiek atzo** (5); **adierazpen horiek egin** (10); **adierazpen horiek egiten** (7); **adierazpen horiek ez** (6); **adierazpen horiek guztiak** (6); **adierazpen horiekin** (12); **adierazpen horien** (11); **adierazpen horien harira** (5); **adierazpen horietan** (4); **adierazpen horrek** (21); **adierazpen horrekin** (9); **adierazpen horren** (12); **adierazpen horretan** (7); **adierazpen hura** (5); **adierazpen instituzional** (7); **adierazpen instituzional bat** (6); **adierazpen instituzionala** (24); **adierazpen instituzionala irakurri** (4); **adierazpen instituzionala onartu** (5); **adierazpen instituzionalaren** (4); **adierazpen ofiziala** (5); **adierazpen ofizialik** (4); **adierazpen perpaus** (4); **adierazpen politiko** (10); **adierazpen politiko bat** (4); **adierazpen politikoa** (12); **adierazpen politikoak** (12); **adierazpen predikatibo** (8); **adierazpen predikatiboa** (4); **adierazpen predikatiboak** (8); **adierazpen publiko** (4); **adierazpen publikoak** (5); **adierazpen publikorik** (5); **adierazpen ugari** (6); **aldeko adierazpen** (11); **aurkako adierazpen** (5); **azken adierazpen** (4); **baina adierazpen** (14); **baina adierazpen horiek** (4); **baita adierazpen** (4); **baten adierazpen** (16); **bere adierazpen** (10); **beste adierazpen** (6); **bezalako adierazpen** (4); **bi adierazpen** (14); **bi adierazpen predikatibo** (6); **buruzko adierazpen** (15); **da adierazpen** (20); **da adierazpen askatasuna** (4); **da adierazpen askatasunaren** (4); **dago adierazpen** (4); **den adierazpen** (7); **diote adierazpen** (4); **diren adierazpen** (8); **ditu adierazpen** (10); **ditu adierazpen horiek** (5); **dituen adierazpen** (9); **du adierazpen** (8); **duen adierazpen** (6); **dute adierazpen** (9); **duten adierazpen** (6); **edo adierazpen** (9); **edozein adierazpen** (5); **egin ditu adierazpen** (5); **egin zituen adierazpen** (50); **egindako adierazpen** (24); **eginiko adierazpen** (15); **eskubideen adierazpen** (4); **eta adierazpen** (100); **eta adierazpen askatasuna** (17); **eta adierazpen askatasunaren** (17); **eta adierazpen horiek** (5); **ez da adierazpen** (5); **hainbat adierazpen** (6); **haren adierazpen** (4); **honako adierazpen** (4); **horren adierazpen** (10); **inguruko adierazpen** (4); **kontrako adierazpen** (8); **kultur adierazpen** (5); **legebiltzarrak adierazpen** (4); **maitasun adierazpen** (4); **onartutako adierazpen** (5); **zen adierazpen** (4); **zenbait adierazpen** (8); **zituen adierazpen** (53); **zituen adierazpen horiek** (49); **zuen adierazpen** (7)

adierazpena aurkeztu (5); **adierazpena da** (24); **adierazpena dela** (7); **adierazpena den** (4); **adierazpena egin** (10); **adierazpena ere** (8); **adierazpena eta** (13); **adierazpena ez** (14); **adierazpena irakurri** (7); **adierazpena irakurri zuen** (5); **adierazpena izan** (9); **adierazpena izan zen** (5); **adierazpena kaleratu** (5); **adierazpena kaleratu zuen** (4); **adierazpena onartu** (5); **adierazpena sinatu** (9); **adierazpena sinatu zuten** (5); **adierazpenak arbuiatu** (6); **adierazpenak berretsi** (6); **adierazpenak berretsi zituen** (4); **adierazpenak dira** (23); **adierazpenak direla** (6); **adierazpenak egin** (95); **adierazpenak egin ditu** (8); **adierazpenak egin dituzte** (6); **adierazpenak egin eta** (7); **adierazpenak egin zituen** (39); **adierazpenak egin zituzten** (7); **adierazpenak egitea** (11); **adierazpenak egiteko** (7); **adierazpenak egiten** (17); **adierazpenak ekarri** (5); **adierazpenak ekarriko** (4); **adierazpenak ematen** (7); **adierazpenak ematen zizkidan** (5); **adierazpenak entzun** (7); **adierazpenak entzunda** (6); **adierazpenak ere** (27); **adierazpenak eta** (19); **adierazpenak ez** (15); **adierazpenak gaitzetsi** (5); **adierazpenak gezurtatu** (4); **adierazpenak gogor** (4); **adierazpenak izan** (12); **adierazpenak izan ziren** (4); **adierazpenak jaso** (7); **adierazpenak jasotzen** (6); **adierazpenak kontuan** (4); **adierazpenak kritikatu** (13); **adierazpenak kritikatu zituen** (5); **adierazpenak zirela** (4); **adierazpenak zirela eta** (4); **adierazpenaren arteko** (4); **adierazpenaren eta** (4); **adierazpenaren sinatzaileek** (4); **aldeko adierazpena** (9); **aldeko adierazpenak** (10); **aldeko adierazpenak egin** (5); **antzeko adierazpenak** (11); **antzeko adierazpenak egin** (8); **aurkako adierazpena** (4); **aurkako adierazpenak** (13); **aurkako adierazpenak egin** (6); **aurrean adierazpenak** (4); **azken adierazpenak** (9); **bartzelonako adierazpena** (7); **bartzelonako adierazpenaren** (7); **batasunaren adierazpenak** (5); **baten adierazpena** (13); **baten adierazpena da** (5); **baten adierazpenak** (5); **bere adierazpenak** (11); **bolognako adierazpenak** (15); **bolognako adierazpenaren** (5); **boloniako adierazpenak** (6); **buruz egindako adierazpenak** (4); **buruzko adierazpena** (8); **buruzko adierazpenak** (6); **dio adierazpenak** (5); **diren adierazpenak** (7); **ditu adierazpenak** (7); **dituen adierazpenak** (9); **dituzten adierazpenak** (6); **doluminen adierazpena** (6); **duen adierazpena** (5); **dute adierazpena** (6); **duten adierazpenak** (8); **duten adierazpenak egin** (4); **egin adierazpenak** (4); **egin ditu adierazpenak** (6); **egin dituen adierazpenak** (7); **egin dituzten adierazpenak** (4); **egin zituen adierazpenak** (74); **egin zituzten adierazpenak** (6); **egindako adierazpena** (10); **egindako adierazpenak** (100); **egindako adierazpenak dira** (11); **egindako adierazpenak ere** (9); **egindako adierazpenak kritikatu** (5); **eginiko adierazpena** (5); **eginiko adierazpenak** (44); **eginiko adierazpenak ere** (6); **eta adierazpena** (8); **eta adierazpenak** (13); **etaren adierazpena** (11); **etaren adierazpenak** (5); **geneen adierazpena** (4); **gisa horretako adierazpenak** (6); **gorputz adierazpena** (5); **gure doluminen adierazpena** (6); **halako adierazpenak** (7); **haren adierazpenak** (13); **herenegun egindako adierazpenak** (6); **honako adierazpena** (4); **horrelako adierazpenak** (11); **horren adierazpena** (4); **horren adierazpenak** (5); **horretako adierazpenak** (8); **inguruan egindako adierazpenak** (10); **inguruko adierazpenak** (7); **kontrako adierazpenak** (11); **kontrako adierazpenak egin** (5); **lehen adierazpena** (5); **lehen adierazpenak** (5); **lekukoren adierazpenak** (4); **maitasun adierazpenak** (8); **ministroak egindako adierazpenak** (4); **ministroaren adierazpenak** (4); **onartutako adierazpena** (5); **otegiren adierazpenak** (7); **p adierazpenak** (4); **presidentearen adierazpenak** (6); **puntuko adierazpena** (4); **sanzen adierazpenak** (4); **z adierazpena** (4); **zapateroren adierazpenak** (4); **zituen adierazpenak** (77); **zituzten adierazpenak** (9); **zuen adierazpena** (9); **zuten adierazpena** (4); **zuten adierazpenak** (5)

adierazpenean eta (4); **adierazpenei buruz** (4); **adierazpenei erantzun** (25); **adierazpenei erantzun die** (4); **adierazpenei erantzun nahi** (4); **adierazpenei erantzun zien** (13); **adierazpenei erantzunez** (9); **adierazpenei erantzuteko** (4); **adierazpenei ere** (4); **adierazpenek ere** (4); **adierazpenek ez** (17); **adierazpenek ez dute** (9); **adierazpenekin bat** (4); **adierazpenen arabera** (25); **adierazpenen artean** (4); **adierazpenen atzean** (4); **adierazpenen aurka** (4); **adierazpenen bat** (7); **adierazpenen bidez** (5); **adierazpenen harira** (16); **adierazpenen haritik** (4); **adierazpenen ildotik** (4); **adierazpenen inguruan** (5); **adierazpenen ondoren** (13); **adierazpenen ostean** (6); **adierazpenetan ere** (5); **adierazpenetan esan** (9); **adierazpenetan esan zuen** (5); **adierazpenetan esan zuenez** (4); **adierazpenetan ez** (4); **adierazpenik egin** (75); **adierazpenik egin nahi** (28); **adierazpenik egingo** (6); **adierazpenik ez** (9); **adierazpenok atzo** (10); **adierazpenok donostian** (4); **adierazpenok donostian egin** (4); **adierazpenok egin** (7); **adierazpenok zapaterok** (4); **atzo egindako adierazpenetan** (16); **atzo eginiko adierazpenetan** (7); **aurrean egindako adierazpenetan** (8); **bere adierazpenetan** (13); **berriari egindako adierazpenetan** (8); **berriari eginiko adierazpenetan** (5); **buruzko adierazpenik** (7); **ditu adierazpenok** (9); **dituen adierazpenek** (5); **dituzten adierazpenen** (4); **du adierazpenik** (8); **du adierazpenik egin** (6); **egin ditu adierazpenok** (8); **egin dituen adierazpenek** (4); **egin zituen adierazpenei** (4); **egin zituen adierazpenetan** (10); **egin zituen adierazpenok** (72); **egindako adierazpenean** (4); **egindako adierazpenei** (38); **egindako adierazpenei erantzun** (11); **egindako adierazpenek** (29); **egindako adierazpenekin** (11); **egindako adierazpenen** (41); **egindako adierazpenen arabera** (14); **egindako adierazpenen harira** (9); **egindako adierazpenen ondoren** (4); **egindako adierazpenengatik** (9); **egindako adierazpenetan** (147); **egindako adierazpenetan esan** (8); **eginiko adierazpenei** (21); **eginiko adierazpenei erantzun** (9); **eginiko adierazpenek** (8); **eginiko adierazpenekin** (4); **eginiko adierazpenen** (5); **eginiko adierazpenengatik** (6); **eginiko adierazpenetan** (55); **egunkariari egindako adierazpenetan** (10); **eta adierazpenen** (7); **euskadiri egindako adierazpenetan** (6); **ez du adierazpenik** (8); **ez zuen adierazpenik** (18); **ez zuten adierazpenik** (10); **herenegun egindako adierazpenei** (5); **herenegun egindako adierazpenetan** (4); **inguruan adierazpenik** (4); **inguruan adierazpenik egin** (4); **inguruko adierazpenik** (7); **inguruko adierazpenik egin** (6); **inolako adierazpenik** (10); **inolako adierazpenik egin** (9); **irratian egindako adierazpenetan** (5); **kultur adierazpenek** (4); **lehen adierazpenetan** (6); **ondoren egindako adierazpenetan** (4); **ostean egindako adierazpenetan** (6); **ostean eginiko adierazpenetan** (4); **osteko adierazpenetan** (5); **telebistan egindako adierazpenetan** (4); **zituen adierazpenei** (4); **zituen adierazpenetan** (10); **zituen adierazpenok** (79); **zituen adierazpenok zapaterok** (4); **zuen adierazpenik** (19); **zuen adierazpenik egin** (16); **zuten adierazpenik** (10); **zuten adierazpenik egin** (10)

---

adierazpide *(orobat **adierazbide** g.er. eta **adirazbide** g.er.)* **1** *iz* aditzera emateko bidea.

Errusiarrek Errusiaren patuaren bakantasunaz zuten uste sendoak Konstantinoplaren -"Bigarren Erromaren"- kapa Errusiaren bizkarrera erori zelako sineskizunean aurkitu zuen **adierazpidea**. Iñaki Mendiguren

-Egia da "Sentitzen dut" esamoldea erabiliegi dagoela, baina halaxe dago oraindik ere hainbestetan erabiltzen dugun "Maite zaitut" **adierazpidea** ere, eta hala ere bizi-bizirik dago. Patxi Zubizarreta

Poetikako eta antzerkiko espresionismoa zela batez ere eztabaidagaia, utopia, itxaropena (Ernst Bloch-en Itxaropen printzipioa eta Utopia espiritua izan ziren garai horretan eragin gehien izan zuten liburuetako bi) eta horrelako filosofia gaiak ukitzen zituen neurrian; gai horiek, izan ere, nekezago dute **adierazpidea** arte plastikoetan. Josu Zabaleta

Liburu honetakoak ez dira gai errazak eta horrek ezinbestean murrizten du **adierazpidea** errazteko ahalegina. Lourdes Oñederra

Semiologiak, **adierazpide** horiek bere esparruan hartzen dituela onarturik ere, bere betiko helburu nagusiari eutsi behar dio: ikurraren arbitrariotasunean oinarrituriko sistemen multzoa izango du helburu. Isabel Arrigain

Zaila da musikoaren hitzetatik liburu bat ateratzea; muga estuak dira horiek zabaltasuna, anplifikazioa helburutzat dauzkan **adierazpide** batentzat. Pako Aristi

Hondamen hori, oroz gain, gaur egun munduko ekonomian nagusi diren hiru ardatzen (Estatu Batuen, Mendebaldeko Europaren eta Japoniaren) arteko teknologia- eta finantza-harreman indarrezkoen oreka berriaren **adierazpide** da. Koro Navarro

Liburu honetakoak ez dira gai errazak eta horrek ezinbestean murrizten du **adierazpidea** errazteko ahalegina. Lourdes Oñederra

Isilik geratu zen, pentsamenduei berriro deitzera ausartzeko, entzuten ari zen doinuaren aberastasunaz harriturik, Circeren eta Saforen arteko biolin borroka dotore eta trebeaz txunditurik, haien bien arteko beste borroka baten **adierazpide** seguru aski, Safo baino lehenago Circe aukeratu baitzuen Egeak maitale. Felipe Juaristi

Hala ere, poetaren eta zientzialariaren arteko **adierazpideen** aldea gorabehera, modu berean jokatzen du irudimenak. Juan Garzia

Zure **adierazpide** guzti-guztiak idatziz jasotzen dira, abisatuta zaude. Anjel Lertxundi

Zabor-bilketako kamioien denborak eta kostuak arrazionalizatzeko, emaitzak optimizatzeko helburuz, lortu ditek ibilbide perfektuaren **adierazpide** den formula matematikoa. Iñaki Iñurrieta

1869-70eko Kontzilio Vatikanoaren dekretuetan izan zuen **adierazpidea**, eta 1907an modernismoaren aurka botatako anateman. Iñaki Mendiguren

Saminak edo nekeak aurpegiko **adierazpidea** gogortu egiten zioten baina itsustera iritsi gabe. Joxean Agirre

Nire gorrotoak ez zuen beste **adierazpiderik** aurkitu. Matías Múgica

2 (izenondoekin)

Emakume askorentzat, berriz, gutuna zen **adierazpide** bakarra, eta gutun idazle gehienak emakumeak izan ziren, liburu honetan aipatua den Sévigné andrea gidari. Jon Muñoz

Freud Erromara joan eta psikoanalisiaren teoriari **adierazpide** plastikoa idoro zion. Edorta Jimenez

Desenkusa antzekoa ere bazen ia, gauzak esateko **adierazpide** samur hura, mintzaideei barkamen eske-edo arituko balitzaie bezala, bere gustuak xelebrekeriatzat har ez ziezazkioten, arren, otoika. Mirentxu Larrañaga

Gutxiengo menderatzailearen aurkako erreakzio proletarioak **adierazpide** bortitza aurkitu zuen hainbat garaitan eta hainbat lekutan, Erdi Aroko nekazari-gerretatik Frantziar Iraultzako jakobinismoraino. Iñaki Mendiguren

Hala, oraindik gaur egun ere, lesbianismoa, homosexualitatea, bisexualitatea, transexualitatea eta beste **adierazpide** sexual batzuk "desbideratzeak" direla diote. Luis Elberdin

Ez dira munduan bi autista berdinak; bakoitzak bere **adierazpide** berezia du. Xabier Olarra

Danborrada, denboraren igarotzearekin, hiriaren arima bihurtu da: dudarik gabe, hiritarren artean harrerarik handiena duen **adierazpide** kolektiboa da. Askoren artean

Peru Abarka idatzi eta ehunen bat urtera Domingo Agirreren *Garoa* eta Flores Kaperotxipiren *Aitona* zoriontsua ezagutuko ditugu, literatura eta pintura kostunbristaren **adierazpiderik** behinenak. Anjel Lertxundi

Arazo guztiz praktiko batetik abiatuta -azterketan toka daitezkeen gai guztiak ahalik eta leku gutxienean sartzea-, ikasleek kontzeptu nagusiak **adierazpiderik** minimoetara ekartzen trebatzen dira. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan)

Poesia [...]: Aldizkarien Lurraldeaz haraindiko **adierazpide** mota berezia. Xabier Olarra

Gramatikak **adierazpide** sistema gisa aztertzen du hizkuntza. Isabel Arrigain

Hizkuntza da **adierazpide** sistemetan konplexuena eta zabalduena. Isabel Arrigain

· Bistan da, bada hor sudur bat, begiak, aho bat, baina horrek guztiak ez du zentzurik, ez eta giza **adierazpiderik** ere. Monika Etxebarria

Euskarak leku zabala bereganatu zuen kultura **adierazpide** horietan. egungo indarkeria egungo arte **adierazpideek** nola islatzen duten azaldu nahi dute jardunaldi hauen bitartez. Koldo Zuazo

Bere imintzioren bat izango zen izutu ninduena, bere gorroto **adierazpidea** izango zen beharbada nire poltsa zimurrean pistolaren bila eskua sartzera eraman ninduena. Joxean Agirre

4 ***ezagutzaren adierazpide*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ezagutzaren adierazpidearen helburuak datu-eredu semantikoen helburuen antzekoak dira, baina bi diziplina horien artean antzekotasun eta alde garrantzitsu batzuk daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adierazpide bat** (6); **adierazpide berri** (3); **adierazpide berrien** (3); **adierazpide den** (3); **adierazpide eta** (3); **adierazpide gisa** (3); **adierazpide guztiak** (7); **adierazpide guztiak lehenbailehen** (3); **adierazpide hori** (4); **adierazpide horiek** (5); **adierazpide politiko** (3); **adierazpidea da** (4); **arte adierazpide** (4); **baten adierazpide** (4); **bere adierazpide** (4); **beste adierazpide** (4); **bortxazko adierazpide** (3); **bortxazko adierazpide guztiak** (3); **edozein adierazpide** (3); **eta adierazpide** (6); **kultur adierazpide** (4); **kultur adierazpideen** (3); **zuen adierazpidea** (3)

---

adierazte *iz* aditzera ematea.

Jaun markesak, ez baitu itsuskeria bat errateko aukera galtzen, Merteuil andreaz ari zelarik, erran zuen atzo ezen eritasunak andre hura irauli zuela, eta orain arima aurpegian duela: zoritxarrez **adierazte** hori mundu guztiari zuzena iruditu zitzaion. Jon Muñoz

Bistan da, biologia molekularren metodoek aukera eman digute geneotariko gehienak bakartzeko, xehe-xehe aztertzeko haien anatomia, elkarrekin erkatzeko, haien **adierazte** -leku eta -denborak atzemateko, haien emaitza aurrez nolabait irudikatzeko. Alabaina, **adierazte** hori (alde batera utzita atribuzioaren arazoak) ez da funtzio homogeneo bat: egile baten izenak berdin-berdin adierazten al du bere izenarekin argitaratu duen testu bat edo goitizen batekin aurkeztu duena edo bera hil ondoren aurkitu dena, zirriborro modura edo ohar nahaskila besterik ez den ohar-liburua? Juan Garzia

---

adierazteke *adlag* adierazi gabe.

Gero nabarmenki ordaindu zenuen kontua, agur esan zenien zure lagunei eta abiatu egin zinen, ez lehenago kanpoan nire zain egongo zinela berriz ere **adierazteke**. Eduardo Matauko

---

adierazterraz *izond* adierazten erraza.

Behin kalkulu-bide horretatik abiatu ondoren, astronomo hasiberriak kontuan hartzen hasi ziren ez eguzkia eta ilargiaren mugimendu ziklikoak bakarrik, baita planeta eta izar "finkoenak" ere, eta haien horizonte kronologikoa **adierazterraza** ez den eta imajinatzen are zailagoa den distantziaraino iritsi zen. Iñaki Mendiguren

---

adieraztezin *izond* ezin adierazizkoa.

Baldwinek bero-sentsazio **adieraztezin** bat sentitu zuen gorputz osoan zehar. Lopez de Arana

Bat-batean hotza sentitu genuen guztiok bihotzean, hotz gordin **adieraztezin** bat, ukiezina, hilkutxetako hotza bezalakoa. Karlos Linazasoro

Onginahizko egintza **adieraztezin** honen (hots, Gizakundearen) ondorioak munduan zehar zabaldu ahal izateko, Jainkoaren probidentziak aurrez Erromatar Inperioa sortarazi zuen. Iñaki Mendiguren

Bueno, tren-geltoki zaharrek beti ditek halako xarma **adieraztezina**, ezta? Fernando Morillo

Sinesgaitza badirudi ere, petaloen igurtzi **adieraztezina** entzun zuen, agian maukak bularraren kurbarekin igurtzi egitean atera zuen hotsa izan zen, Jainko maitea, erruki zaitez irudikatzetik bizi diren gizonez. Jon Alonso

Beraiek baizik beste mintzaira batera, hunkiduraren mintzairara, itzuli ezin zituzten hitz neutroak erabiltzearen plazer **adieraztezinaz** gozatuz. Jon Alonso

Ni bakarrik joaten nintzen, haien suhiaren axolagabetasunaren benetako arrazoiak ezkutatuz, arrazoi **adieraztezinak** baitziren. Joseba Urteaga

Lagunekin Europan barrena egindako tren bidaian hasi ziren kilimakurrak sabelaldean, bagoian berarekin bakarrik egoteko grina ulertezina, **adieraztezina**, lagunen gaztetasun txilioetatik gorderik. Eider Rodriguez

---

adierraz *izond* aditzen erraza.

Sentsuzko begiespenaren objektuek gogamenean dautzan sentimenaren baldintza formalen araberakoak izan behar dutela honegatik argitzen da: bestela guretzako objekturik ez liratekeelako; baina hauek horretaz gain adimenak pentsatzearen batasun sintetikorako behar dituen baldintzen araberakoak izan behar dutela dioen inferentziaren ondorioa ez da hain **adierraza**. Ibon Uribarri

---

adierraztasun *iz* adierraza denaren nolakotsuna.

Nirea, berriz, asko arduratzen da nitaz, baina ez du ama baten sotiltasunik, ez sentiberatasunik, ez **adierraztasunik**. Josu Zabaleta

---

adiezin *izond* ezin adituzkoa.

Hortxe geratuko ziren trabatuta garrasi etsituak zein amodio deklarazio aldrebesen oihartzunak, jadanik **adiezinak** horman antigoaleko marrazkien moduan. Joseba Sarrionandia

Horrek ez du zentzurik, zeren erlaziorik (commercium) ez izateak gainerako gauzekin **adiezina** izatea esan nahi baitu. Piarres Xarriton

Esker dezagun Jainko betiko goi-goiko eta gorena, Hirutasuna eta Batasuna, Aita eta Seme eta Espiritu Santua, gauza guztien egilea eta berarengan sinesten eta itxaroten eta bera maite duten guztien salbatzailea, hasierarik eta amaierarik gabea dena, aldaezin, ikusezin, kontaezin, esanezin, **adiezin**, ikertezin, bedeinkatu, goresgarri, ospetsu, goraipatu, goren, garai, leun, maitagarri, atsegingarri eta gauza guztien gainetik guztiz desiragarria gizaldietan. Askoren artean

---

adigabe *izond/iz* pertsonez mintzatuz, inguratzen duenaz edo axola duenaz arduratu gabe aritzen duena.

Ez diogu, ordea, lege gogorra bizkarreratu behar, Kutun du, izan ere, jendetza **adigabeak**, zeinak ez baitu onirizten zentzuz, begiz baizik; eta, hala denean, errudunaren zigorra da auzi, eta ez inola ere errua. Juan Garzia

Jakintsu **adigabeak**, horiek azaletik irakurtzean, irrigarri deritze, berorien hitzezko esangura besterik hartzen ez duelako. Xabier Kintana

Ikasle **adigabea** naiz... Atsegin hartzen dut eguzki hau gozatuz, ikasmahaiaren, klarionaren, arbelaren haur usain hori dastatuz. Josu Zabaleta

Ikasle **adigabearen** antza zuen: liburua dauka begien aurrean, baina ikaskideek egiten dizkioten imintzioei begira dago. Jose Morales

Orduan, **adigabeak** ez lirateke inolako zigorrik gabe libre ibiliko, eta ezagupenen fintasunik handienarekin prestatutakoak bakarrik ibiliko lirateke arkitekto-lanak egiten, inolako zalantzarik gabe. Santiago Iruretagoiena

---

adigabetu, adigabe(tu), adigabetzen da/du *ad* adia galdu edo galarazi, adigabe bihurtu.

Otoitzean ari nintzen itxurak egin nituen, baina ezin nuen arretarik bildu, emakume zaharraren murmurioak **adigabetzen** ninduen eta. Irene Aldasoro

Gurutzatzeko txanda heldu zitzaienean, nahasturik eta **adigabeturik** zegoen artean Gabriel. Irene Aldasoro

Biserari atzera sakelan behera bultza egin eta bulegoan sartu zen berriro, **adigabetuaren** itxurak eginez. Irene Aldasoro

---

adigai *iz* kontzeptua.

Forma hauek adimen hutsaren **adigaiak** eta judizioak dira, hots, adimenaren **adigai** hutsak edo kategoriak eta adimen hutsaren oinarri-esakuneak izendatzen direnak. objektu batetik edo bere izatetik ezin da igaro beste objektu baten izatera edo izateko erara gauza horien **adigai** soilen bitartez. Ibon Uribarri

Halako oinarriarekin **adigai** hori enpirikoa besterik ez litzateke izango. Ibon Uribarri

Gauza baten **adigai** bakarrak determina dezake hura *a priori* osoki, hots, *ens realissimum*-en **adigaiak**; beraz, zerizan oroerrealaren **adigaia** beharrezko zerizan bat pentsatzea ahalbidetzen duen **adigai** bakarra da, h[au] d[a], zerizan goren bat existitzen da halabeharrez. Ibon Uribarri

Oinarri-esakune horien bitartez, beraz, sori izango zaigu agerpenak **adigaien** batasun logikoarekin eta orokorrarekin elkartzea, analogia baten arabera besterik ez izan arren. Ibon Uribarri

Arazo hauek saihesteko, ekologia mailan oso arruntak diren **adigaiak** argi izatea ezinbestekoa da. Berria - Gaiak

Modalitatearen kategoriek hau dute berezia: beraiek predikatu gisa atxikitzen zaizkion **adigaiari** ezin diotela deus ere gaineratu, **adigaia** objektuaren determinazioa den heinean, baizik ezagumenarekin hartuemana soilik adierazten dutela. Ibon Uribarri

Arrazoimen hutsaren **adigaien** ahalgarritasuna edozein dela ere, **adigaiok** ez dira soilik hausnartutako **adigaiak**, inferituak baizik. Ibon Uribarri

Kausalitate horrek ekintzaren **adigaira** garamatza, honek indarraren **adigaira** eta azken honen bitartez substantziaren **adigaira** iristen gara. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **a priori adigai** (5); **adigai bakarrak** (4); **adigai bakoitzari** (6); **adigai bat** (25); **adigai batek** (4); **adigai baten** (21); **adigai bati** (14); **adigai determinaturik** (4); **adigai enpiriko** (6); **adigai enpirikoa** (7); **adigai eta** (7); **adigai eta oinarri** (4); **adigai gisa** (9); **adigai guztiak** (5); **adigai guztien** (5); **adigai haien** (4); **adigai hau** (19); **adigai hauek** (25); **adigai hauen** (9); **adigai honek** (8); **adigai honen** (17); **adigai honetatik** (4); **adigai honi** (5); **adigai hori** (4); **adigai horiei** (4); **adigai horiek** (8); **adigai horien** (5); **adigai horren** (6); **adigai huts** (26); **adigai huts guztien** (4); **adigai hutsa** (5); **adigai hutsak** (31); **adigai hutsei** (6); **adigai hutsen** (37); **adigai hutsen dedukzioaren** (5); **adigai jakin** (8); **adigai jakinen** (4); **adigai oro** (4); **adigai orokor** (5); **adigai orokorra** (5); **adigai ororen** (10); **adigai soila** (4); **adigai soilean** (7); **adigai soilen** (25); **adigai soilen arabera** (4); **adigai soilen bitartez** (16); **adigai soiletatik** (12); **adigai soiletatik abiatuta** (8); **adigai soiletik** (4); **adigai transzendental** (7); **adigai transzendentala** (4); **adigai transzendentalak** (5); **adigaia bera** (6); **adigaia da** (12); **adigaia ere** (6); **adigaia eta** (5); **adigaia ez** (10); **adigaia ez da** (4); **adigaia oro** (4); **adigaia oro har** (4); **adigaia osatzen** (4); **adigaiak bere** (7); **adigaiak bere baitan** (5); **adigaiak dira** (8); **adigaiak ere** (5); **adigaiak eta** (7); **adigaiak ez** (11); **adigaian ez** (10); **adigaiaren arabera** (6); **adigaiaren bidez** (5); **adigaiaren bitartez** (10); **adigaiari dagokion** (4); **adigaiei jarraiki** (5); **adigaiei jarraiki egindako** (4); **adigaien arabera** (16); **adigaien araberako** (6); **adigaien bidez** (8); **adigaien bitartez** (19); **adigaien eraikuntzaren** (10); **adigaien eraikuntzaren bitartez** (8); **adigaietatik abiatuta** (13); **adigairik ere** (5); **adigairik ez** (9); **adigairik sortu** (4); **adigaitik abiatuta** (7); **adigaitik at** (5); **adimenaren adigai** (82); **adimenaren adigai huts** (15); **adimenaren adigai hutsak** (17); **adimenaren adigai hutsen** (23); **adimenaren adigaiak** (10); **adimenaren adigaiei** (5); **adimenaren adigaien** (13); **apriorizko adigai** (20); **apriorizko adigaiak** (6); **arrazoimen adigai** (7); **arrazoimen adigaia** (4); **arrazoimenaren adigai** (16); **arrazoimenaren adigaia** (4); **arrazoimenaren adigaiak** (4); **baina adigai** (8); **baten adigai** (19); **baten adigai soilean** (4); **baten adigaia** (43); **baten adigaiak** (5); **baten adigaian** (11); **baten adigaiaren** (5); **baten adigaiari** (5); **baten adigairik** (5); **baten adigaitik** (7); **bere adigai** (12); **bere adigaia** (7); **bere adigaiak** (12); **bere adigaian** (6); **bere adigaiaren** (4); **bere adigaien** (9); **bere adigaitik** (6); **bere adigaitik abiatuta** (4); **beste adigai** (6); **bi adigai** (4); **da adigai** (8); **den adigai** (7); **den adigaia** (4); **diren adigai** (5); **ditugun adigaiak** (4); **duen adigai** (13); **duen adigai baten** (4); **duen adigaia** (8); **duen adigaiak** (4); **duten adigaiak** (6); **duten adigaien** (4); **eta adigai** (30); **eta adigaien** (4); **ezein adigai** (12); **ezein adigai determinaturik** (4); **ezein adigaik** (4); **ezein adigairik** (13); **gauza baten adigai** (6); **gauza baten adigaian** (5); **gauzaren adigaia** (5); **goren baten adigaia** (5); **gure adigai** (8); **gure adigaiak** (6); **gure adigaien** (5); **halako adigai** (4); **halako adigaia** (5); **handitasunaren adigaia** (5); **hauek adigai** (5); **hausnarketa adigaien** (4); **hutsaren adigaiak** (5); **kausaren adigaia** (11); **nire adigaiak** (4); **nire adigaian** (4); **noumenoaren adigaia** (4); **objektu baten adigaia** (9); **oinarrizko adigai** (6); **oinarrizko adigaiak** (7); **orduan adigai** (12); **priori adigai** (5); **substantziaren adigaia** (7); **zerbaiten adigaia** (4); **zeren adigai** (7); **zerizan baten adigaia** (5); **zuen adigaiarentzat** (4)

---

adigaitz *izond* entzungaitza; ulerkaitza.

Matson jaunak, makurtu eta kirrinka-hots **adigaitz** batez jaso zuen lurretik mintza-tutua eta Cook andreari eman zion. Mirentxu Larrañaga

Ferrytik, urrundu ahala gero eta **adigaitzago** zen kanta bat zetorren. Lopez de Arana

Marmar **adigaitz** batekin erantzun nion, Miren Karmelerena kontatu edo ez zalantzan nengoela. Xabier Mendiguren Elizegi

Ordura arte, ahotsak baino ezin izan zituen entzun, baina orain Geralden ahotsa bereiz zezakeen atalasearen beste aldetik deika; hitz **adigaitzak** entzun zizkion. Mirentxu Larrañaga

Argi horrek bazeukan berezitik eta **adigaitzetik** zerbait. Koldo Izagirre

---

adigaizkeria *iz* gaizki-ulertua.

Erromara ekartzearekin auzia, batzuk beldurtu ziren luzamenduak, **adigaizkeriak**, Espainiako Inkisizioaren eta haren joko gainsekretuzkoaren fama txarra ez ote ziren etorriko. Piarres Xarriton

---

adigaiztasun *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* ulergaiztasuna.

Eragozpen ezohiko horretan hartzen dute oin neurri handi batean idazki filosofikoen **adigaiztasunari** buruzko kexak, bestalde indibiduoak hura ulertzeko behar diren formazioaren beste baldintzak dituenean. ETC-literatura, saiakera

adigaldu *izond* arreta galdu duena.

Nahi gabe zure begirada **adigalduak** ferekatu ninduen Eduardo Matauko

adigalkor *izond* arreta galtzeko joera duena.

-Maisu Meriadoc -esan zuen Aragornek-, pentsatzen baduk mendietan eta Gondorko erresuman barrena odola eta sua tarteko etorri naizela, bere gauzak galtzen dituen soldadu **adigalkor** bati belarra ekartzera, erabat oker habil. Agustin Otsoa

adigarri *izond* ulergarria.

Ez da deus **adigarririk** nik aditzen ez dudanik, ez dakidana izan ezik. Imanol Unzurrunzaga

Gorputz bat erabat aktiboa izan litekeen neurrian [...] eta sortzen dituen ondorio guztien eta bakoitzaren kausa egokia izatean, erabat **adigarri** edo arrazional izango litzateke (*causa sive ratio*) bere kontsiderazio hutsetik. Piarres Xarriton

Gero ez baita erabiltzen soilik hunkigarri dituen gauzekin, baina bai **adigarri** zaizkion gai izpiritualekin. Piarres Xarriton

Jakizu badirela gauza **adigarri** batzuk giza adimenak, bere izaeraz eta ahalmenaz, uler ditzakeenak. Xabier Kintana

Hirugarren zati hau arras egokia da mundu sentikorretik mundu **adigarrira** pasatzeko, hots, ezagutza diskurtsibora ailegatzeko. Askoren artean

Arrazoimenari esker bereizten ditu gizakiak "egiazkoa" eta "faltsua", eta hau hala gertatzen da gauza **adigarri** guztietan. Xabier Kintana

Itsustasuna eta edertasuna gauza irizgarrietan gertatzen dira, eta ez **adigarrietan**. Xabier Kintana

Begieste mistikoan biziki trebatuz utz itzak alde batera zentzumenak eta endelguaren jardunak eta sentigarria eta **adigarria** den guztia eta baden eta ez den guztia, eta, ahal den neurrian, gora hadi ezjakintasunean funts oro eta ezagutza oro gainditzen dituen harekin batasuna lortu arte. Joan Mari Lekuona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adigarria ahalean** (3); **adigarria da** (3); **adigarria dela** (4); **adimendua eta adigarria** (3); **adimenduna eta adigarria** (5)

adigarritasun *izond* ulergarritasuna.

Baldin esperientzian nahiz kristau-doktrinan banakoak erakusten zuen lehentasunari eutsi nahi bazaio, eta horren duintasun ontologikoa eta **adigarritasuna** bermatu, alde batera utzi behar da greziarrek forma orokorrari ematen zioten pribilegioa, eta horren balioa erlatibizatu. Askoren artean

adige *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi) izond/iz* Kaukasoko ipar-mendebaldean bizi den etnia; etnia horri dagokiona; etnia horretako kidea.

Ipar Kaukasoko hainbat lekutan dolu eguna izan dute; urteotako saminak ez dira gutxi, baina historia ere ez dute ahazteko: **Adigeen** tragediatik 145 urte bete dira egunotan. ETC-prentsa

Ipar Mendebaldeko Kaukasoan daudenek osatzen dute bigarren taldea: abjazia, abaza, **adigea**, kabardino eta ubykh dira horko hizkuntzak, azken hau desagertutzat ematen bada ere. ETC-prentsa

Teherango beste komunitate etnikoak, besteak beste, kurduak, armeniarrak, georgiarrak, bakhtiariak, talyshiak, balutxak, asiriarrak, arabiarrak, juduak eta **adigeak** dira. ETC-entziklopedia

700.000 **adige** inguru bizi dira Zirkasia historikoan (Errusiako Adigea, Kabardino-Balkaria eta Karatxai-Txerkesia errepublikak, eta Krasnodar kraiaren hegoaldeko erdia) eta 3 milioi baino gehiago diasporan (2 milioi baino gehiago Turkian, 150.000 inguru Levante eta Mesopotamian, eta 50.000 inguru Europan eta Ipar Amerikan. ETC-entziklopedia

adigera *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi) iz* adige etnian mintzatzen den hizkuntza.

Adigera zirkasiarren hizkuntza da. Kaukasoar hizkuntzak Kaukasoar hizkuntzen artean Ipar-mendebaldeko kaukasoar familiakoa, Errusiako Adigea errepublikan mintzatzen da. ETC-entziklopedia

Kaukasoar hizkuntzen artean, Ipar-mendebaldeko kaukasoar familiakoa, abkhazera, **adigera**, kabardera eta ubykherarekin batera. ETC-entziklopedia

Batzuentzat zirkasiera edo **adigeraren** aldaera besterik ez da. ETC-entziklopedia

Beren hizkuntza, **adigera**, Kaukasoko ipar-mendebaldeko familiakoa da. ETC-entziklopedia

Adigeraz irakasten den azken bi herrietako bat da Bolxoi Kichmay. ETC-prentsa

adigogor *adlag* **

Eta neure gaztaroan **adigogor** ibili nintzela konturatu nintzen. Txillardegi

adiguri *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi) iz* oparia.

Alegia, frantsesek (Europa osoan autore frantsesak dira Gorteetan estimutzen direnak): alemanek Berlinen bertan alferrik bilatuko baitzuten Gortearen **adiguria**. ETC-literatura, saiakera

V.a Bolonian inperatore koroatua izan delarik, Frantziaren aurka Aita Santuaren **adiguria** bilatzeko asmotan Erroma bisitatzekoa zela-eta, Printze eliztarrak egundoko inbertsioa egin du hiria dotoretzen, kaiser germaniarrari Inperioaren egiazko oinordekoa beste inor baino lehenago bera zela erakusteko kariaz. ETC-literatura, saiakera

Izadi immentsoaren **adiguri** edo anparoan bildua ikusi zure izatea borroka, inpotentzia. ETC-literatura, saiakera

Hortense Cornuren **adiguriari** eskerrak, inperatoreak Asia Txikira misio ofizialean joatea eskaini dio ikerketa arkeologikoak egitera. ETC-literatura, saiakera

Larriak gara eta ez dugu behar aitaren **adiguririk**. ETC-zientzia, zuzenbidea

adigurian *adlag* opariz.

Adimena ahalmen bat da, mugatua, objektiboki ezagutzen ahal duena, sentimenen ekarpenez berak egiten duelako, arrazoimenaren **adigurian**, ezagutza-kategoriei esker objektibotasunez janzten duena, baina fenomenoak bakarrik, ez gauza berbaitan. Askoren artean

adiguritsu *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* adeitsua.

Zerbitzariei zegokienez, lakovleven jabetzetatiko jopuak ziren, semearekin eta seguru asko nagusiaren oinordekoa izango zenarekin **adiguritsu** portatzeko trebatuak. ETC-literatura, saiakera

---

adijardun *iz* aditzeko jarduna.

Nire **adijardunak**, nahiak eta oroimenak, aldiz, nire potentzien ariketak dira. Zientzian azkeneko hitza **adijardunari** dagokiola, eta erlijioan, aldiz, azkeneko hitza adimenaren jaun den gogoari dagokiola. Jenaro Garate

---

adikatu, adika(tu), adikatzen da *ad* nekatu, unatu.

Besteek aspertzen, arnegatzen, gogaitzen, **adikatzen** dituztenak, eta bakardadeak aldiz, lasaitzen dituenak, beren askatasunean eta beren pentsamenduaren fantasian soseguz bainatzen dituenak. Josu Zabaleta

---

adikema *iz* ekintzaren irregulartasuna.

Ekintzaren irregulartasunari, **adikema** deitzen zaio, ekintza bidegabe, eta intentzioarenari, adikia eta kakia: injustizia eta maltzurkeria; hura buru nahastu baten eritasuna da; hau, gogo lasai baten maltzurkeria. Esteban Antxustegi

---

adiki *iz* ekintza bidegabea.

Zeren ekintzaren irregulartasunari, adikema deitzen zaio, ekintza bidegabe, eta intentzioarenari, **adikia** eta kakia: injustizia eta maltzurkeria; hura buru nahastu baten eritasuna da; hau, gogo lasai baten maltzurkeria. Esteban Antxustegi

---

adikor *izond* aditzeko joera duena.

Bihotz-belarri erne eta **adikorrak** emango dizkiet. Elizen arteko biblia

Ohiko "egun on" diosal irribarretsua egin zion, eta begiradatxo hantuste maltzur eta **adikorra** erantsi, miresmen-zantzu lauso antzo. Mirentxu Larrañaga

Esango nuke nahiago izaten dutela proposamen zuzena -gutxieneko estiloaz egina bada noski-, gizonok askotan egitera beharturik sentitzen garen ingurumari korapilatsu eta lerdenak baino; sentibera daudenean behintzat, eta, bestela ere, **adikorrak** izaten dira. Ramon Saizarbitoria

---

adikortasun *iz* adikorra denaren nolakotsuna.

Irakurleak hura nirekin zeharribiltzeko **adikortasuna** eta egonarria izan badu, orduan orain juzga dezake ea oinezkoen zaldain hau errege-bide bihurtzen lagundu nahiko lukeen Ibon Uribarri

---

adiktibo *izond* adikzioa eragiten duena.

Analgesikoak, **adiktiboak** direnez gero, debekatu egin zituzten gobernuek. Joseba Sarrionandia

Ez zara ausartuko brompton morfina dela eta morfina oso **adiktiboa** dela esaten. Joseba Sarrionandia

---

adikto *(corpusean ez dago; ETCn **65** agerraldi) izond* adikzioa duena. ik **menpe 4**.

Denok gara **adikto**, gauza bati ez bada, beste zerbaiti. ETC-literatura, saiakera

Okaztagarria irizten nien reality-en **adikto** bilakatu nintzen laster. ETC-literatura, saiakera

Itsu-itsuan eroriko dira teleikusleak; itsuago zelai-ikusle **adiktoak**. ETC-prentsa

Ni ez naiz hobea, baina ez naiz monobolumenaren **adiktoa** bihurtu, ez nabil bigarren etxebizitza bat erosteko lehian, hain justu ere 300.000 euskaldunek gure mugetatik kanpo bigarren pisua erosten dutela telebistan entzun dudan egun honetan. ETC-prentsa

Edan duzula, ez duzula edan, edo pina zukuaren **adiktoa** zarela erantzunda ere, nekez libratuko zara putz egitetik. ETC-prentsa

Badira ere kontrako sintomak jasaten dituztenak: "lanerako **adiktoak**" deitutakoak. ETC-prentsa

Une horretan aktibitate horrek eragin larria du **adiktoaren** eguneroko bizitzan, kontrola galtzen du eta jarduarekiko menpekotasuna garatzen du. ETC-prentsa

Behin hasi, eta ezin geratu, artazien desfile militarraren **adikto** bihurtu dira. ETC-prentsa

Ez zen mundu osoan hildakorik bat bera ere gertatu haren kontsumoagatik, ez zen **adikto** edo menpekorik deskubritu eta ez zen osasun ondorio txarrik antzeman. ETC-zientzia, zuzenbidea

Substantziaren mendeko edo **adikto** bihurtzen da pertsona, eta ezin da bizi substantzia hori kontsumitu gabe. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gaur egun, berriz, gazteria **adikto** bihurtzea da helburu nagusia, doako dosiak eskainiz, kontsumitu ondoren, erosle berriak ziurtatuta dauzkate. ETC-entziklopedia

Konpultsioz edaten zuen eta anfetak hartzen zituen erruz, **adikto** bihurtu zelarik. ETC-entziklopedia

---

adikune *iz* begirada.

Adikunea sabaiaz haratagoko jopuntu batean finkatuta segundo batzuk igaro eta gero, soluzioa aurkitu izanaren aurpegiera egin zuen. Josu Landa

Alboko apalategietan zuen **adikunea** bizkitartean. Josu Landa

---

adikzio *(orobat **adizio** g.er.)* **1** *iz* droga edo kideekiko mendetasuna.

Goizeko lanbroak hezetutako egunkaria hatzetan sentitu eta ogi egin berriak tinta beltzarekin nahasian sortzen duen usainak, nikotinak adina **adikzio** sortzen duenak, ez dauka preziorik. Harkaitz Cano

Anorexia, bulimia eta antzeko **adikzioak** gizarte aberatsetan agertzen dira. Berria - Gaiak

Patologia psikiatrikoez, alkoholismoaz eta beste substantzia batzuekiko **adizioez** arduratuko da. Berria - Euskal Herria

Sindikatu horren iritziz, erretzen jarraitu duten pertsonek badute horretarako eskubidea; **"adizio** legal batez ari garen neurrian, enpresetan hori bideratu ahal izateko moduak aztertu beharko lirateke". Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Gizakia behartsua da, zentzu literalean, beharrei buruz **adikzioa** duen izakia. Iñaki Heras

Hurbileko pasaldien **adikzioa** izan ohi dute batzuetan tourettedunek. Xabier Olarra

Literatura ia patologia bezala bizi du tolosarrak, utzi ezinezko **adikzio** bezala, eta horregatik da, ziurrenik, gure idazle oparo eta interesgarrienetako bat. Berria - Kultura

Marketinak kontsumorako grina, beharra ala desioa, ez ezik, obsesioa eta **adikzioa** ere sortzen du. Iñaki Heras

Barnetegiak **adikzioa** sortzen zuen. Ana Urkiza

3 ***pilula-adikzio*** *(corpusean **piluladikzio** soilik)*

Pertsonaiak, sugearen sagarrari haginka egin ostean, badoaz inkontzientziaren paradisutik egotzita haluzinaziora, borrokara, mozkorrera, bakardadera, **piluladikziora**, heriotzaren nagusitasun eta ezinbestekotasun itzela guztian eta funtsean sentitzera. Berria - Kultura

4 ***sexu adikzio*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Egun, mundu zabaleko psikiatrek buruko nahasmenduak diagnostikatzeko darabilten "Buru asalduren diagnosi eta estatistika eskuliburua" zerrendatik ezabatuta dago eta nahasmendua izendatzeko hipersexualitatea eta **sexu adikzio** terminoak hobesten dira. ETC-entziklopedia

Abenduaren 11n, golflariak behin-behinean erretiroa hartuko zuela iragarri zuen, eta, gerora, **sexu adikzioa** zuela-eta tratamenduan zegoela publiko egin zuen. ETC-prentsa

Pornografia kontsumitu eta **sexu "adikzioa** " duen gizon batek sexurako grina bai baina maitasunerako duen ezintasuna erakutsi nahi du filmak. ETC-prentsa

Sexu adikzio terminoa orain hogeita hamar bat urte sortu zen Ameriketako Estatu Batuetan, Alkoholiko Anonimoen modura, hainbat talde biltzen hasi zirenean sexu arazoak zituztelako. ETC-prentsa

---

adimen 1 *iz* gogamenaren bidez aditzeko ahalmena; ulertzeko edo ikasteko gaitasuna. ik **adimendu**; **ezagumen**.

Edozein modutan pentsaturik ere, Haren **adimenak** eta Haren nahimenak harreman berak dauzkate gauza kreatuen eta haien ordenaren gainetik Haren esentziarekin eta Haren betegintzarrearekin. Piarres Xarriton

Nire gogoeta, gogo eta gogorapenez erabiltzen ditut nire potentzia diren **adimena**, nahimena eta oroimena. Jenaro Garate

Edozein modutan pentsaturik ere, Haren **adimenak** eta Haren nahimenak harreman berak dauzkate gauza kreatuen eta haien ordenaren gainetik Haren esentziarekin eta Haren betegintzarrearekin. Piarres Xarriton

Adimena deitzen dugu, alabaina, (berez argi den bezala) ez pentsamendu absolutua, baina bai pentsatzeko modu berezi bat, maitasunaz, gurariaz, eta beste batzuez bestelakoa. Piarres Xarriton

Adimena beharrezkoa zaigu esperientzia guztietarako eta beren ahalgarritasunerako. Ibon Uribarri

Non du bere egoitza **adimenak**? Imanol Unzurrunzaga

Emazkidazu, otoi, jakinduria eta **adimena**, herri hau egoki gobernatzeko. Elizen arteko biblia

Adimenak eta sentimenak loturan soilik determina ditzakete gugan objektuak. Ibon Uribarri

Horrek adierazi nahi du **adimena** ez dela erabili behar gizakiak hautemangarri duen arloan besterik, gizakiak bere izaeraz atzematerik ez dauzkan gaietan saiatzea arriskugarria izaten delako. Xabier Kintana

Egiaren irizpide logiko soila, hots, ezagutza batek **adimenaren** eta arrazoimenaren lege orokorrekin eta formalekin duen adostasuna, egia ororen *conditio sine qua non* da. Ibon Uribarri

Adimenaren izaerari dagokio, beraz, gauzen kontenplatzea betierearen itxura horretan. Piarres Xarriton

Hitza idaztean begientzat egiten dugu ezaugarria, belarriei dagokiena **adimenera** irits dadin. Imanol Unzurrunzaga

Aipaturiko hautemate horiek guztiok **adimenari**, eta ez zentzuei, dagozkiola. Xabier Kintana

Testu horietan datzan asmoa ez da espekulaziorako atea erabat itxi eta **adimenari** bere helmenean duena ulertzen galaraztea. Xabier Kintana

Nire **adimenari** esperientziaren baldintza formalekin bat egiteaz gain zerbait erants dakioke, hots, hautemapen batekin elkarlotura. Ibon Uribarri

Gai sotil horiek, ia ulertezinak **adimenarentzat**, ezin litezke adieraz ohiko mintzairaz. Xabier Kintana

Zorionekoa jakinduriari emana eta **adimenaz** arrazoitzen duena. Elizen arteko biblia

Ziurtasun hori **adimenezko** ezagutzatik, Ideien atzipenetik soilik etor daiteke. Imanol Unzurrunzaga

Zure maitasunak inoren maitasuna sinestera eramaten zaitu; eta ikusmena eta **adimena** iristen ez zaizkizunetara zure fedea iristen da. Imanol Unzurrunzaga

Jakituriaz, **adimenez** eta ezagueraz betea zen. Xabier Kintana

Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz eta **adimen** guztiaz. Elizen arteko biblia

Erraten dut bigarrenekorik, kateatze hori egiten dela giza Gorputzeko afekzioen ordenaren eta katearen arabera **adimeneko** ordenaren arabera egiten den ideien katetik bereizteko. Piarres Xarriton

Berak egin zituen zeru-lurrak eta berak eman zion Davidi seme jakintsua, zuhurtziaz eta **adimenez** jantzia. Elizen arteko biblia

Adimenari doakionez, dakusadanez, bat ohi datoz **adimenezko** multzoaren atomoetako batean datzan akzidente bat dela esatean. Xabier Kintana

Adimenezko hautemateetan, materiari lotuak diren aldetik, zentzuzkoei doakien bezalako zerbait gertatzen dela. Xabier Kintana

Laugarren Gutunean izate sentikorra eta **adimenezkoa** bereizte aldera egin dituen aurrerapenak azaltzen dizkio Nebridiori. Imanol Unzurrunzaga

Bera ere intelektuala da, baina **adimenik** gabea. Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Berezko zuhurtzia, **adimen** ona eduki eta gaiak iradokizunez aurkezteko hizlari bikaina izanez. Xabier Kintana

Emadazu **adimen** argia zure herria gobernatzeko, eta ona eta txarra bereizteko. Elizen arteko biblia

Ohituta zegoen hitz erdizka mintzatzen, **adimen** zorrotzak hitz gutxi behar duela esaten zuen beti. Anjel Lertxundi

Jainkoak nahi balu beste kontaezinezko izateak pentsa ditzagun, behar ligukeela eman, segur, **adimen** handiago bat. Piarres Xarriton

Hortik dator giza Izpiritua Jainkoaren **adimen** mugagabearen parte izatea. Piarres Xarriton

Jainkoaren **adimen** infinituaren baitan. Piarres Xarriton

Adimen unibertsala (nous) deituko dio Pitagorasek unibertsoaren harmonia matematikoari. Askoren artean

Orain bai, jakin dezakegu **adimen** bertutetsua baino hobea den natura, zernahi izanda ere, ezin dela inolaz ere injustua izan. Imanol Unzurrunzaga

Analitika transzendentalak **adimen** hutsaren adigaiak eta judizioak barnebiltzen ditu. Ibon Uribarri

Adimen banatu edo abstraktuak forma hutsak direlako. Xabier Kintana

Filosofia analitiko anglosaxoiak konputagailuen **adimen** artifizialaren eta gizakiaren **adimen** naturala ere aztertu ditu. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez da Naturan deusik aurkitzen, **adimen** Maitasun horren kontrako denik, hots, hori suntsi dezakeenik. Piarres Xarriton

Ordurako antzematen zituen Agustinengan gizarte maila garrantzitsuetara eramango zuten gaitasunak eta **adimen**-ahalmenak. Imanol Unzurrunzaga

Gure **adimen**-ekimena higitzen duten errepresentazioak alderatzeko. Askoren artean

Litekeena da halakoak gauza adigarriak ezin ulertzea, horiek oinarrizko nozioak izan arren, bai eta horri buruz aski ergela izatea ere, **adimen** baliabiderik gabea. Xabier Kintana

Beste batzuek egileen **adimen**-ahulezia eta irudimen ustela salatzen dute. Xabier Kintana

Hiponako Agustin filosofo eta teologoaren lanik ezaugarrienak hautatu dira, berauetan azaltzen baitira hark giza eta **adimen** ahaleginez gehien jorratutako auzi funtsezkoak. Imanol Unzurrunzaga

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jainko-**adimenaren** "jarioa" da, profeten gainean isuria, horren bidez profetizatzeko. Xabier Kintana

Giza **adimena** iritsi al daiteke Jaungoikoa ezagutzera? Imanol Unzurrunzaga

Nagusitasun hori ez da infinituraino heltzen, eta giza **adimenak** halako muga dauka, eta horra heltzean gelditu egiten da. Xabier Kintana

5 *adimen anitz* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Batzuk aipatzearren, ikaskuntza dialogikoa, **adimen anitzak**, ikaskuntza kooperatiboa eta proiektuen bidezko ikaskuntza, ulermenerako ikaskuntza edo zerbitzu ikaskuntza. ETC-prentsa

Zer du, bada, xakeak, erreferentziazko tresna hezitzailea izateko? Pello Agirrezabal HH eta LHko zuzendariak argi du: "Elkartasuna, errespetua eta **adimen anitzak** erabat lantzen ditu". ETC-prentsa

Howard Gardnerren adimen anizkoitzaren teoriari loturik daude. Montserrat Del Pozo egilearen ikuspegitik gauza bera dira **adimen anitzak** eta gaitasunak. ETC-entziklopedia

6 *adimen anizkoitz* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Bestalde, ikaslearen hausnarketa eta gogoeta prozesua irakaskuntzaren ardatz bihurtzeko prozesu horretan, ikusteko pedagogia tresnak, multimedia, lan kooperatiboa, **adimen anizkoitzak**, pentsatzeko abileziak eta errutina baliabideak ere txertatuko dituztela aitatu du Solabarrietak. ETC-prentsa

7 *adimen anizkun* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ustea da planteamendu hippya dela, baina **adimen anizkunak** ere hippyak ziren, eta gaur egun curriculumaren barruan daude. ETC-prentsa

8 *adimen argi*

-Bai, noski -esan zuen Power jaunak-, **adimen argiek** ikusi egiten dituzte gauzak. Irene Aldasoro

Izan ere, gauzen lehenkiak ez ziren berariaz eta **adimen argiz** paratu bakoitza bere ordenan ez elkarrekin bakoitza nola mugitu erabaki, baina, betiraun guztitik hartutako kolpeen eraginez, hainbeste izan eta hainbeste aldakuntza jasanik, era guztietako mugidak eta elkartzeak esperimentatuz, azkenik gauzadi hau sortzeko eta irauteko moduko egituretara iritsi dira. Xabier Amuriza

Bururatu zitzaidan nolabait gauza ederra zela hain gorpuzkera kaskarrak halako **adimen argia** ezkutatzea. Alberto Ladron Arana

Emaiozu, bada, zure zerbitzari honi **adimen argia**, zure herria gobernatzen eta ona eta txarra bereizten jakin dezan. Jose Antonio Mujika

Bere **adimen argi** eta trebetasunagatik beste guztien gainetik nabarmenduz, esaten da zaletasun handia zuela tresna mekanikoak egiten aritzeko. Santiago Iruretagoiena

Miresmena diet **adimen argiei**. Josu Zabaleta

Badu Poek Gutun lapurtua ipuinean darabilen harridura-mekanismoaren halako aire bat: Poeren ipuineko G. polizia-prefektuak metodo sofistikatuenak baliatzen ditu lapurtutako objektuak bilatzeko, baina poliziaren **adimen argia** ez da gai ebidentzia deskubritzeko: mahai gainean eta denen bistan dago lapurtutako gutuna. Anjel Lertxundi

Han ere kalifikaziorik onenak lortu zituen letra ederretan, historian eta filosofian, eta bere **adimen argiagatik** ez ezik bere xarma bereziagatik eta berriketa biziagatik nabarmendu zen. Antton Olano

9 *adimen artifizial* *(ETCn **920** agerraldi)*

Robotikaren eta **adimen artifizialaren** gaineko oinarri teorikoak jaso zituzten, eta robotak eraiki zituzten. Berria - Gaiak

Globalizazioaren gakoak teleteknologiak dira (satelitea, diru elektronikoa, informatika, Internet, sare telematikoak, teknologia digitala, CD-Rom, DVD, errealitate birtuala, **adimen artifiziala**, bioinformatika eta beste horrenbeste). Askoren artean

Vision androidea da, eta gizaki fanatiko-ek ez dute harreman hori begi onez ikusten, "**adimen artifizialak** zilegitu eta humanoak baztertuko dituelakoan» Berria - Mundua

10 *adimen atzerapen* *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi)*

Honelako egoerak egon daitezke: umearen gaixotasun kronikoa, **adimen-atzerapena**, sentimen-urritasuna edo urritasun fisikoa, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Down-en sindromea duten gizabanakoek 21 kromosomaren hiru kopia dituzte, eta horrek ezaugarri mongoloideak, hatz motzak, garaiera txikia eta **adimen-atzerapena** dakartza. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gaixotasun honetan tirosinaren metabolizazioa oztopatuta dago eta gorputzean pilatzean arazo larriak sortzen ditu (gibel- eta giltzurrun-patologiak, **adimen-atzerapena**...). ETC-zientzia, zuzenbidea

Down-en sindromea edo 21 trisomia 21. kromosoma parean hiru kromosoma agertzearen ondoriozko asaldura genetikoa da, bere ezaugarriak **adimen atzerapena** eta bereizgarri fisiko bereziak izanik. ETC-entziklopedia

Garaia baino lehen jaiotzen diren haurtxoek bizitzako lehen urteetan hiltzeko arrisku handia dute, baita osasun-arazo larriak garatzeko, hala nola garuneko paralisia, biriketako gaixotasun kronikoak, urdail-hesteetako arazoak, **adimen-atzerapena**, ikusmenaren eta entzumenaren galera edota bat-bateko heriotzaren sindromea. ETC-entziklopedia

Garapen fisiko eta intelektualean atzerapenak agertzen dira, eta gaixoek **adimen atzerapena** dute. ETC-entziklopedia

Crispinak **adimen-atzerapen** bat du eta komentuko apaiz batek bortxatuta izaten du, Fitzroy deituriko apaiz batek. ETC-entziklopedia

Phenylkenoturya delakoak 14.000 umetik bati erasaten dio, eta sendabide egokirik ezean **adimen-atzerapena** eta kalte neurologiko larriak eragiten ditu; phenylanina urriko dieta batekin, berriz, ondorio horiek ekidin daitezke. ETC-prentsa

Adimen atzerapena dutenek garaian garaiko gizartean parte hartzerik badutela frogatzen jardun du elkarteak urte horietan guztietan. ETC-prentsa

Uliazpi Fundazioak orain dela hiru urte zabaldu zuen Bergaran **adimen atzerapen** zorrotza duten pertsonendako eguneko zentroa. ETC-prentsa

11 *adimen emozional*

Esan egiten dute **adimen emozionalaren** ezaugarrietako bat laguntza eskatzen jakitea dela, behar denean, behintzat. Berria - Kultura

12 *adimen gutxiko*

Esaldia zeharo ergela da, zer egingo diogu, esaten dugun guztiaren erdia, gutxienez, **adimen gutxikoa** da, ez, Costak ez dit beste lanik eman, berdin da, ez du axolarik, atseden hartzeko aprobetxatuko dut. Jon Alonso

Platonek muga ipini nahi zien behartsuen jaiotzei, **adimen gutxikotzat** baitzeuzkan txiroak. Juan Garzia

Halaber, baldin gogojardunak ematen dituenak hartzen dituenari igartzen badio **adimen gutxiko** edo berezko trebetasun txikikoa dela, zeinengandik etekin handirik espero ez den, hobe da jardun arin hauetako batzuk ematea, harik eta bere bekatuen aitortza egin arte. Patxi Altuna

Hobe da Jaunari begirune dion **adimen gutxikoa**, legea hausten duen buru-argia baino. Elizen arteko biblia

13 *adimen koefiziente* adimen kozientea.

Hizkuntza arloko AKan (adimen-**koefizientea)** 52 besterik ez baitzuen lortu. Xabier Olarra

14 *adimen koziente*

Hamaika bete zituztenean, berriz, askoren **adimen kozientea** bederatzi urteko haurren parekoa zen. Berria - Gaiak

Luis García Gutiérrez Defentsa ministerioko Psikologia Zerbitzuetako buruari, adibidez, ez dio enbarazurik sortu Espainian soldadu profesionala izateko **adimen-kozientea** 90etik 70era jaitsi izanak. Txema Ramirez de la Piscina

Paranoiatik monomaniaraino hel gaitezke, **adimen-kozientetik** ergeltasunaren lehen adigairaino, paralisi orokorretik entzefalopatia kronikoraino, izaeraren neurositik deliriorik gabeko zorotasuneraino. Xabier Arregi

15 *adimen mapa* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Adimen-mapa ideiak, teoriak, jarduerak edo kontzeptuak garatu eta azaltzeko irudizko diagrama bat da. ETC-entziklopedia

16 *adimen osasun*

Urte horretan, ordea, itxi egin zuten, eta sare berri bat jarri zuen martxan Gobernuak: **adimen osasunerako** zentroak, errehabilitaziorako klinika eta oso larri dauden gaixoentzako unitateak sortu ziren. Berria - Harian

2005ean egindako lanari so, aurtengo egitasmoen eta proiektuen zerrenda egin du Nafarroako **Adimen Osasunaren** Aldeko Elkarteak (Anasaps). Berria - Euskal Herria

17 *adimen osasuntsu*

Denbora gutxi barru ikusiko duzue zuek bezain **adimen osasuntsua**, zuek bezain argia eta zuhurra dudala, niretzako tamalez, eta zuentzat ere bai, tamalez, eta gizadi

osoarentzat orobat. Josu Zabaleta

18 *adimen urri*

Nigana etorri eta hitz batzuk egiten zizkidan belarrira alemanez Strogoff zela sinets nezan, eta nire **adimen urriaz** ere aritzen zen niri ulertarazi nahian berak esaten zizkidanak entzun besterik ez nuela egin behar. Pello Lizarralde

Harrituta agertu zen, eta Eusko Jaurlaritzaren asmoarekin, xakea kirol arlotik ateratzearena, soilik "**adimen urri** batena» izan daitekeela esan zuen. Berria - Kirola

Autistek, adimen testetan, dutena baino **adimen urriagoa** erakusten dutela kritikatu du Montrealgo Unibertsitateko (Kanada) zientzialari talde batek. Berria - Gaiak

"Alde hemendik, aretoan arazo bihurriak // konpontzen baitira --, eta hor **adimen-urriak** // uste baitu mahaiburuak galdetzen duenean // iritzia aztertutako arazoen gainean, // bai ala ez bozkatzeko eskatzen dionean, // aski dela NI jartzea botoen paperean". Xabier Olarra

19 *adimen urriko*

Nafarroan zentro berezietako tresnak eskoletara bideratzeko lanean murgildu da Pili Ioldi, **adimen urriko** haur baten ama. Berria - Harian

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ikastetxe arruntetara bideratzen dituzte **adimen urriko** haurrak artatzeko baliabideak. Berria - Harian

Hortik aurrera, gauza bera errepikatu zuen behin eta berriro, eta funtzionarioak konturatu ziren Korobotxka **adimen urriko** emakume zaharra besterik ez zela. Jose Morales

Alabaina, **adimen urriko** jendeaz ari ez garenez, are gutxiago arima-gidari eta interpretari datozen apaiz-jende anitzen laguntza dutelarik, portugaldarrei Lisboa setiatzen eta hartzen laguntzeari uko egiteko arrazoi indartsua egon behar da. Jon Alonso

Adimen urriko haur batekin aritzeko baliatuko lukeen samurtasun osoz, baina Gibraltarko itsasartearen irmotasun ezkutukoaz. Mirentxu Larrañaga

Gorroto diot beste hizkuntzetako hitzak erabiltzeari portugesezkoak falta zaizkidalako, **adimen-urriko** sentitzen naiz, hori alemanez baizik ezin da barkatu, alemanez hainbat hitz daudelako alemanak baizik sentitzen ez dituen gauzak izendatzeko. Karlos Zabala

Zer uste zuen, bada, lau aldizkari txepel irakurrita berak baino gehiago zekiela? Baita zera ere! Gainera, ezer aipatu ez bazion ere, barne-dekorazioa buru-ahulentzako zaletasun ezdeusa iruditu izan zitzaion beti, emakume **adimen urrikoen** jostaketa tuntuna, petit point-ez eta toile de Jouy-ez eginiko lore joko hutsala. Patxi Iturritegi

Haur gehienek ulertzen dituzte argibideak, baina zakurrak motzagoak dira horretan, niri segika etortzen direnak bederen itsusiak eta **adimen urrikoak** izan ohi dira. Joxean Agirre

Hauek esan ditut, **adimen urrikoei**, laburki bada ere, konpreniarazteko, haien belarrietara edo begietara idazkiok helduko balira. Imanol Unzurrunzaga

William, zaharrena, gazterik hil zen, tuberkulosi alkoholikoz; bigarrena, Edgar, idazlea, delirium tremenseko krisi batek jota hil zen, eta alaba gazteena, Rosalie, **adimen urrikoa** zen. Koro Navarro

20 *adimen urritasun*

Ertzainek etxegabearen hitzak entzun eta berehala ihesean zihoazen gazteetako bi harrapatzea lortu zuten: 17 urteko adingabea bat, eta **adimen urritasuna** duen 22 urtekoa bestea. Berria - Euskal Herria

Tiroidearen jarduera eskasak eragindako **adimen urritasun** sakonari deitzen zaio kretinismoa, eta endekapen fisikoarekin batera agertzen da gehienetan Berria - Gaiak

Herenegun, berriz, **adimen-urritasuna** zuen 47 urteko plaestinar bat hil zuten tiroz Janinen. Berria - Mundua

Adimen urritasun larria edo sakona duten pertsonei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen ditu. Berria - Euskal Herria

21 *adimena argitu*

Zentzumenak zorroztu, **adimena argitu**, oroimena zabaldu eta nahimena indartu ahala, zentzumenak eta adimena eta nahimena eta oroimena erabiliko dituen gogoa argitzea eta indartzea da. Jenaro Garate

Kapitulu honetan zen anai Antonio ere; honi Jaunak **adimena argitu** zion, Liburu santuak uler zitzan, eta herri osoari ezti berria baino hitz gozoagozJesusi buruz hitz egiteko dohaina eman zion. Askoren artean

Orduan, **adimena argitu** zien, Liburu Santuak uler zitzaten. Elizen arteko biblia

22 *adimena ilundu*

Berriak **adimena ilundurik**, egiaren egarriz bainoago egia gosez, gutun bat idatzi nuen hurrengo egunean, ohetik jaiki bezain laster, nire osaba eta erregeari emateko. Felipe Juaristi

Gure bikoteak iragan dituen egunik larrienak izan ziren orduko haiek niretzat, eta orain oroitzen naizenean ere, gaixotu bezala egiten naiz orduko minaren akordu hutsarekin: larritu egiten zait barrua, bihotza azkartu eta **adimena ilundu**. Hasier Etxeberria

eta **adimena ilundua** dute; Jainkoaren bizitzatik urruti bizi dira, beren burugogorkeriagatik ezjakintasunean murgilduak baitaude. Elizen arteko biblia

23 *adimena lausotu*

Eta, zela lorik ezak **adimena lausotu** ziolako, zela bere hogeita sei urteekin zinez xaloa zelako, "ahal dut" hori naturala iruditu zitzaion dena zilegi zen eta inork inori baimenik eskatzen ez zion etxe horretan. Jose Morales

Neskaren **adimena lausotu** eta bere titi gazteak listuaz busti. Aritz Gorrotxategi

24 *adimenaren filosofia* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Besteak beste, aztergai izan ditu zentzua eta erreferentzia, predikazioa etab. 1976. urteaz gero, gutxi gorabehera, bereziki kezkatu da **adimenaren filosofiaz**. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

adimen argi (3); **adimen argi eta** (3); **adimen argia** (8); **adimen arruntak** (6); **adimen arruntak ere** (3); **adimen arruntaren** (5); **adimen artifizialaren** (3); **adimen banatu** (3); **adimen bat** (6); **adimen batek** (6); **adimen bizia** (3); **adimen biziaren** (3); **adimen edo** (6); **adimen eta** (16); **adimen eta nahimen** (4); **adimen guztiaz** (6); **adimen guztiz** (7); **adimen handiko** (3); **adimen hau** (3); **adimen hori** (3); **adimen horrek** (4); **adimen horren** (3); **adimen hutsa** (10); **adimen hutsa da** (3); **adimen hutsak** (7); **adimen hutsaren** (70); **adimen hutsaren adigaiak** (3); **adimen hutsaren bitartez** (5); **adimen hutsaren objektu** (4); **adimen hutsaren oinarri** (23); **adimen hutsari** (5); **adimen infinituan** (3); **adimen koefizientea** (3); **adimen kozientea** (3); **adimen maila** (4); **adimen mailako** (3); **adimen maitasuna** (8); **adimen mota** (3); **adimen oro** (4); **adimen osoa** (3); **adimen osoz** (3); **adimen soilaren** (5); **adimen urriko** (32); **adimen urriko haur** (3); **adimen urriko haurrak** (4); **adimen urriko haurrek** (4); **adimen urriko haurren** (3); **adimen urrikoa** (3); **adimen urrikoentzako** (5); **adimen urritasuna** (6); **adimen zerizanak** (3); **adimen zorrotz** (4); **adimen zorrotz batek** (3); **adimen zorrotza** (3); **adimen zorrotzak** (3); **adimen zorrotzeko** (3); **adimen zorrotzekoa** (5); **adimena argitu** (3); **adimena argitzen** (3); **adimena baino** (4); **adimena baino urrunago** (3); **adimena bera** (11); **adimena bere** (3); **adimena da** (8); **adimena deitzen** (3); **adimena duen** (3); **adimena edo** (4); **adimena eman** (6); **adimena ere** (11); **adimena erregelen** (4); **adimena eskatu** (3); **adimena eta** (57); **adimena eta arrazoimena** (5); **adimena eta gogoa** (3); **adimena eta nahimena** (11); **adimena ez** (15); **adimena ez da** (5); **adimena ez dela** (3); **adimena garatzeko** (3); **adimena gauza** (3); **adimena neurtzeko** (3); **adimena nola** (3); **adimena zorroztu** (5); **adimenak aldi** (3); **adimenak baino** (3); **adimenak berak** (3); **adimenak bere** (14); **adimenak bere baitan** (3); **adimenak egiten** (5); **adimenak eta** (17); **adimenak eta nahimenak** (3); **adimenak etsaia** (4); **adimenak etsaia baino** (4); **adimenak ez** (12); **adimenak ez du** (4); **adimenak ezin** (8); **adimenak ezin du** (4); **adimenak gauza** (5); **adimenarekin eta** (4); **adimenarekin eta bere** (3); **arrazoimena eta adimena** (8); **autisten adimena** (4); **autisten adimena neurtzeko** (3); **baina adimen** (4); **baina adimena** (5); **baino adimen** (3); **baizik adimen** (3); **bere adimen** (16); **bere adimena** (10); **bere adimenak** (3); **bere egoitza adimenak** (3); **beren adimen** (6); **berezko adimen** (3); **beste adimen** (5); **bitartez adimenak** (4); **borondatea eta adimena** (3); **da adimen** (3); **da adimena** (5); **den adimen** (5); **den adimena** (7); **dira adimen** (4); **diren adimena** (3); **du adimen** (4); **du adimena** (9); **duen adimen** (3); **edo adimen** (6); **edo adimena** (3); **egoitza adimenak** (3); **emakumearen adimena** (4); **ere adimen** (5); **eta adimen** (71); **eta adimen guztiaz** (6); **eta adimen guztiz** (3); **eta adimen hutsaren** (7); **eta adimena** (74); **eta adimena eman** (3); **eta adimena eta** (3); **eta adimena ez** (3); **eta adimenak** (27); **eta beren adimen** (3); **ez adimen** (4); **ez adimena** (4); **ez adimenak** (4); **ezein adimen** (5); **gabeko adimen** (3); **giza adimen** (5); **giza adimena** (11); **giza adimenak** (13); **gizakiaren adimenak** (4); **gure adimen** (3); **gure adimena** (17); **gure adimenak** (17); **hain adimen** (5); **halako adimen** (3); **haren adimena** (8); **haren adimenak** (3); **honek adimen** (4); **izpirituaren adimen** (3); **izpirituaren adimen maitasuna** (3); **jainkoaren adimen** (10); **jainkoaren adimen maitasuna** (3); **jainkoaren adimena** (8); **jainkoen adimenak** (3); **jakinduria eta adimena** (5); **menpeko den adimena** (3); **nahimena eta adimena** (3); **nire adimen** (7); **nire adimena** (14); **nire adimena eta** (3); **nire adimenak** (11); **orduan adimen** (4); **orduan adimenak** (3); **oso adimen** (4); **osoz eta adimen** (6); **zuen adimen** (6); **zuen adimena** (7); **zure adimen** (3); **zure adimena** (3)

a priori adimenaren (3); **adimenaren actus** (3); **adimenaren adigai** (82); **adimenaren adigai huts** (15); **adimenaren adigai hutsak** (17); **adimenaren adigai hutsen** (23); **adimenaren adigaia** (3); **adimenaren adigaiak** (10); **adimenaren adigaiei** (5); **adimenaren adigaien** (13); **adimenaren arabera** (6); **adimenaren artean** (4); **adimenaren arteko** (3); **adimenaren aurrean** (3); **adimenaren benetako** (3); **adimenaren beraren** (4); **adimenaren bidez** (8); **adimenaren bidezko** (3); **adimenaren bitartez** (14); **adimenaren bitartez soilik** (3); **adimenaren edo** (6); **adimenaren ekintza** (9); **adimenaren erabilera** (43); **adimenaren erabilera enpiriko** (4); **adimenaren erabilera enpirikoa** (3); **adimenaren erabilera enpirikoaren** (3); **adimenaren erabilera enpirikoari** (3); **adimenaren erabileraren** (6); **adimenaren erregela** (5); **adimenaren erregelen** (4); **adimenaren eta** (25); **adimenaren eta arrazoimenaren** (7); **adimenaren eta nahimenaren** (4); **adimenaren ezagutza** (11); **adimenaren ezagutza hutsaren** (3); **adimenaren ezagutzak** (3); **adimenaren ezagutzaren** (5); **adimenaren forma** (3); **adimenaren gainean** (3); **adimenaren gainetik** (7); **adimenaren izaerari** (5); **adimenaren izaerari dagokio** (4); **adimenaren jarduera** (5); **adimenaren jaun** (6); **adimenaren lege** (3); **adimenaren lehen** (3); **adimenaren menpe** (4); **adimenaren menpe sar** (4); **adimenaren oinarri** (15); **adimenaren oinarri esakune** (5); **adimenaren oinarri esakuneen** (3); **adimenaren sintesiaren** (3); **adimenari bere** (4); **adimenari buruzko** (4); **adimenari dagokion** (6); **adimenari dagokion ordenaren** (4); **adimenari ere** (3); **adimenari esker** (3); **adimenari eta** (7); **adimenaz baliatzen** (4); **adimenaz eta** (6); **adimenaz ikusten** (4); **adimenean eta** (3); **adimenean soilik** (9); **adimenetik landa** (4); **adimenez eta** (5); **adimenez urri** (3); **adimenik ez** (7); **adimenik gabe** (5); **adimenik gabeko** (5); **arrazoimena adimenaren** (4); **arrazoimenak adimenaren** (5); **atala adimenaren** (3); **atalburua adimenaren** (3); **atalburua adimenaren**

adigai (3); **baina adimenaren** (3); **baita adimenaren** (3); **baizik adimenaren** (5); **baizik eta adimenaren** (3); **batek adimenaren** (4); **bere adimenaren** (15); **bere adimenari** (3); **bere adimenaz** (8); **bere adimenean** (4); **beren adimenaren** (3); **da adimenaren** (13); **dela adimenaren** (3); **den adimenaren** (8); **dena adimenaren** (3); **dio adimenari** (4); **diren adimenaren** (4); **du adimenaren** (6); **dugu adimenaren** (3); **ea adimenaren** (3); **edo adimenaren** (8); **edo adimenean** (4); **ere adimenaren** (5); **eta adimenaren** (55); **eta adimenaren artean** (4); **eta adimenaren arteko** (3); **eta adimenaren erabilera** (4); **eta adimenari** (7); **eta adimenaz** (5); **eta adimenez** (5); **eta bere adimenaren** (3); **eta ez adimenaren** (3); **ez adimenaren** (11); **ez adimenaren adigai** (3); **ez da adimenaren** (3); **gabe adimenaren** (5); **giza adimenaren** (21); **giza adimenarentzat** (4); **giza adimenari** (3); **gure adimenaren** (26); **gure adimenari** (3); **gure adimenaz** (3); **gure adimenean** (4); **har adimenaren** (4); **hau adimenaren** (4); **jatorria adimenean** (3); **mugagabeko adimenaren** (3); **mugagabeko adimenaren menpe** (3); **nire adimenaren** (12); **nire adimenari** (7); **oro har adimenaren** (4); **priori adimenaren** (3); **zentzumenen eta adimenaren** (3)

---

adimendu *iz* adimena.

Beraz, argi gelditzen da, alde batetik, **adimendua** egintzan existitzen den guztietan, **adimendu** hori gauza adigarria dela eta, beste alde batetik, jadanik azaldua da **adimendu** ororen esentzia osatzen duen egintza adimendun izatean datzala. Xabier Kintana

Behin **adimendua** egintzara helduz gero, hiru gauzak bat bakarrean berdintzen dira, eta ez da behin ere **adimenduan** edo adigarrian bi gauza ezberdin aurkituko, berauen ahalean hartzen direnean izan ezik. Xabier Kintana

Egintzara iragan den **adimendua** zur abstraktuak giza izpirituan daukan itxura da, **adimendua** ez baita objektu adigarria besterik. Xabier Kintana

Foruaren eta euskararen defentsa soiletan baineuzkan kokaturik neure bihotza eta neure **adimendua**. Txillardegi

Ondorioz, Bera betiere adimenduna, **adimendua** eta adigarria da; Haren esentzia adimenduna da; Haren esentzia bera **adimendua** da, eta Haren esentzia bera, halaber, adigarria da, egintzan den **adimendu** orotan gertatzen den bezala. Xabier Kintana

Marinel zaharraren hitzek Piarres Oihartzabal kapitainaren **adimendua** argitu zuten. Joan Mari Irigoien

"Bihotzak **adimenduak** ikusten ez dituen arrazoinak" baitauzka. Herria

Abstrakzio hagitz jantzien lurrunak **adimenduaren** begiak lausotzen dizkigula. Iñaki Segurola

Sinestea bera ordea, **adimenduaren** ekintza da, Jainkoaren egiazko hitza onartzen dugularik, nahikundearen aginduz, Jainkoaren graziak sustaturik. Piarres Xarriton

Adimenduaren jabe izatera heldua denaz mintzo naiz. Piarres Xarriton

Edozein paradisuk, egiazko izaiteko, bi harroin behar zituela, bihotzarena bata eta **adimenduarena** bertzea. Joan Mari Irigoien

Jende honek **adimendurik** ez du goragoko gauzetarako, jainkozkoetarako. Joan Mari Lekuona

Adimendurik ez duen zaldi edo mando bat. Xipri Arbelbide

Adimenduz eta buruz uste baino ere maiteago ez othe dugun guziek Frantzia? Berria - Kultura

Gizaki horrek hain distira garbi eta dirdaitsuz egingo zuen argi, halako dohainaz aberasturik, non giza **adimendu** batek ere ez baitzezakeen bere ahaleginez haren garbitasuna ezagutzerik lortu. Joan Mari Lekuona

Aitortu beharra daukat ur handiegiak direla hauek nere **adimendu** motzarentzat eta ez naizela gauza G.-ren hitz horiek ezkutatzen duten misterioa zulatzeko. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adimendua egintzan (9); **adimendua egintzara** (3); **adimendua eta adigarria** (3); **baina adimendua** (3); **bera adimendua** (3)
adimenduaren goi (3)

---

adimendun 1 *izond* adimena duena.

Arima **adimendunari** esker gertatzen da hau gizakiarengan. Imanol Unzurrunzaga

Arima bera **adimenduna** den bezainbatean hautabidea aitortzen zaio, nahi izateko edo ez izateko ahalmena duelakotz eta hori bere baitarik adimena duen ber ezagutza baitu. Piarres Xarriton

Elkarrekiko begiruneaz batuketa egin eta ezkontideen arteko eginbehar eta betebeharrak, gizaki **adimendun** eta sentiberen arteko harremanetan gauzatzen direnak, horra hor zuzenbide naturalpeko gaiak. Andres Urrutia

Ez dut "gizaki", "ugaztun **adimendun"** eta antzeko bihurrikeria jakintietan katigatu nahi. Iñaki Segurola

Filosofoek Jainkoa "adimendua, **adimenduna**, adigarria" dela diotenean zer esan nahi duten. Xabier Kintana

2 irud/hed

Eraikin **adimendunaren** barruko segurtasun neurriak indargabetuta zeuden: bai segurtasun kamerak eta baita keak eragin behar zituen alarma eta ihinztatzaileak. Berria - Harian

Jadanik azaldua da adimendu ororen esentzia osatzen duen egintza **adimendun** izatean datzala. Xabier Kintana

52 gela, 104 ohe, ebakuntzak egiteko lau gela **adimendun**, kimioterapiarako 12 anbulatorio postu. Berria - Euskal Herria

Washingtonek 5.000 bonba **adimendun** salduko dizkio Israeli. Berria - Mundua

Txalupa, bere kasa dabilen motor **adimendun** batek eraginda bezala, inolako arraunlaririk gabe, itsas barrurantz aldendu zen, bertan zeuden guztien begi harrituen aurrean. Askoren artean

3 (izenlagun gisa)

Adimendun izadi hura, argiari so eginez argi dena. Imanol Unzurrunzaga

4 ***bozgorailu adimendun*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Halere, eskatu dit, berak erosketa gorde bitartean, **bozgorailu adimendunarekin** entretenitzera joateko. ETC-prentsa

5 ***garraio sistema adimendun*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Garraio sistema adimendunak errepide bidezko garraiobideen eraginkortasuna eta segurtasuna hobetzeko teknologiak dira. ETC-entziklopedia

Hiria esku-eskura lelopeko biltzarra Bizkaiko Diputazioak, Bilbao Metropoli 30 elkarteak eta **garraio sistema adimendunen** erabilera sustatzen duen Ertico Europako erakundeak antolatu dute. ETC-prentsa

6 ***kontratu adimendun*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Lantegi adimenduna beste lantegiekin koordinatuko da, eta elkarrekin negoziatuko dute, blockchainak ahalbidetzen dituen **kontratu adimendunen** bitartez. ETC-prentsa

Plataforma horien helburua da pareen sare bati erabiltzaileek sortutako **kontratu adimendunak** administratzeko aukera ematea. ETC-entziklopedia

7 ***telebista adimendun*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Telebista adimenduna (ingelesez "smart TV") internet eta Web 2.0 ezaugarriak telebista digital (bereziki 3D telebista) eta set-top box gailuan integratzeari deritzaio, bai eta internet, telebista horiek eta STB gailuak bat egitea ahalbideratzen duen teknologiari ere. ETC-entziklopedia

Hala, aurrerantzean **telebista adimenduna** izango da, eta aukera emango du lehiaketa batean denbora errealean parte hartzeko, Interneten nabigatzeko, norberaren gustuko bideoak aukeratzeko edo erosketak egiteko. ETC-prentsa

Bi ereduen arteko talka hori, ordea, **telebista adimendunekin** elkartzen ari da. ETC-prentsa

Azken urteetan, EiTBk telefono mugikorrerako eta **telebista adimendunerako** aplikazioen garapena bultzatu du, euskarazko ikus-entzunezkoak eskuragarri egiteko kontsumo modu berrietan. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***telefono adimendun*** *(corpusean ez dago; ETCn **202** agerraldi)*

Telefono adimenduna (--) poltsiko ordenagailu mota bat da, telefono mugikorraren eta tableten elementuak konbinatzen dituena. ETC-entziklopedia

2010. urtearen atarian, alabaina, Smartphone deritzoten **telefono adimendunak** dira nagusi: multimedia aukerak, pantaila ukigarriak eta abiadura handiko Internet konexioa. ETC-prentsa

Zerrenda luze horri smartbook tablet deritzona batu zaio azkenaldian, **telefono adimendunen** eta ordenagailu ultraeramangarrien artean dagoen tresna berria. ETC-prentsa

Autoan erabiltzeko GPS hargailuekin ere, antzera gertatzen hasi da azken urteotan, **telefono adimendunak** merkatu direnetik, hain zuzen. ETC-prentsa

Askotan esan dugu **telefono adimendunak** ordenagailuekin parekatzen ari direla, ahalmen handiko prozesagailuengatik eta ekoizleek erabiltzen dituzten pantailengatik, gero eta handiagoak baitira. ETC-prentsa

Telefono adimendunen sektorean lehiakideek aurrea hartu izan diote azken urteetan, eta, horrexegatik, zuzendaritza eraberritzea erabaki du Finlandiako etxeak. ETC-prentsa

Telefono adimendun batean autobus bidaian irakurtzen hasitako liburua etxeko ordenagailuan irakurtzen jarraitu ahal izango da, eta aplikazioak zenbatgarren orrian utzi den gogorarazi ko du. ETC-prentsa

Berak sortu edo ekoitzi aurretik bazeuden ordenagailuak, MP3 gailuak, Interneteko musika dendak, sakelako **telefono adimendunak** eta tabletak. ETC-prentsa

Adibide praktiko bat jartzearren: **telefono adimendun** edo smartphone bat urte batez erabiltzeko ordaindu edo alokatzen dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gaur egun, betiko telebista-aparatuaz gainera, ordenagailua, **telefono adimenduna** zein tableta erabil daitezke ikus-entzunezkoen kontsumorako, nahi den tokian eta nahi den unean. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

adimendutsu *izond* adimentsua.

Nire adinekoa-edo zelarik, burutsu eta **adimendutsu** zen Jesus, sinagogako doktoreen doktore eta jakintsuen jakintsu. Joan Mari Irigoien

Jende **adimendutsuak** miresten zituen eta aitatxik horren froga oraintxe eman zuen. Elena Touyarou

Gure herriak pentsalari eta inteligentzia gailen gutxi eman du; baina, alderantzi z, bataz besteko jende **adimendutsua** da euskalduna. Joxe Azurmendi

Hantxe ni, hain **adimendutsu** nintzena zoro adimendu gabe bihurtua! Joan Mari Irigoien

Neure senak erabaki **adimendutsu** hartarat bulkatu baninduen ere, egoera hark ez zuen luze iraun, ondikotz. Joan Mari Irigoien

---

adimengabe 1 *izond* adimenik ez duena.

Haren prediku eta doktrina santua nolako debozioz entzun behar zen adierazteko, beste batzuetan bezala, abere **adimengabeez** -hots, arrainez- baliatuz lotsarazi zuen heretiko fedegabeen zorakeria. Askoren artean

Ez izan zaldi eta mando **adimengabeen** antzeko. Elizen arteko biblia

Harrigarria zen benetan nola sorkari **adimengabeek** ere sumatzen eta ezagutzen zuten Frantziskok azaltzen zien maitasun onbera eta guztiz gozoa. Askoren artean

Barru kartsuko gizona zen eta behe-mailako izaki **adimengabeei** ere gupida eta amodio samurra zien. Askoren artean

2 (izen gisa)

Zein ere baitzatekeen basa gizon baten ulermena, beti izanen zen noski **adimengabeena** baino handiagoa. Dena dakien (edo jakina dagoela uste duen) **adimengabeak** bi gauza behintzat ez dakizki, eta bi gauza horiek dira: bata ez dakit esaten, eta bestea zer da? galdetzen. Juan Garzia

3 ***adimengabeko*** *izlag*

Santuaren jainkozaletasuna, eta nola **adimengabeko** izakiek harengana erakarriak ziruditen. Askoren artean

Gizon horiek, harrapatu eta sarraskitzeko sortuak diren **adimengabeko** animaliak bezalakoak dira. Elizen arteko biblia

Haren karitate-espiritua eta bihozberatasuna ez zen gizaki premiadunengana bakarrik luzatzen, baita **adimengabeko** animalia mutuengana ere, narrasti, hegazti eta bestelako izaki zentzudun ala zentzugabeetara. Askoren artean

Jainkoaz betea zegoen gizon honek jarrera guztiz gizakoi eta errukitsua erakusten zuen **adimengabeko** sorkarientzat. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adingabeko atzerritarrei** (3); **adingabeko bat** (3); **diren adingabeko** (3)

---

adimentsional *(corpusean ez dago; ETCn **65** agerraldi)* *izond* dimentsiorik gabekoa.

Horiez gain, bi unitate **adimentsional** ere erabiltzen dira: rad (radian) eta sr (estereorradian). ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, dimentsio bakarreko kontsolidazioaren ekuazio diferentziala magnitude **adimentsional** bilakatuz, T denbora-faktorea eta t zuzenki proportzionalak dira lagin jakin baterako, karga zehatz baten mendean. ETC-zientzia, zuzenbidea

-a magnitude **adimentsional** bat da, magnitude erlatibo bat da gas/gainazala talken frekuentziarekiko, eta erreferentziasistema moduan erabiliko da beste harrapaketa-koefizienteentzat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oinarrizko unitateez gain, SI sisteman bi unitate **adimentsional** osagarri daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eckert zenbakia (Ec) fluidoen mekanikan erabiltzen den zenbaki **adimentsional** bat da. ETC-entziklopedia

Zenbaki magnitude **adimentsional** hau 1 baino txikiagoa denean, materiala bera fluidotzat har daiteke (jarraikako medioa). ETC-entziklopedia

Duela gutxi arte, horrelako bi unitate **adimentsional** SI sistemakotzat hartu izan dira, ""unitate osagarriak"" zirela esanez: "radian" eta "estereorradian" unitateak, hain zuzen. ETC-entziklopedia

---

adimentsu 1 *iz* adimen handikoa; baliabide teknologiko aurreratuak dituena.

Nolatan lege hori ez zaio aldaezin eta betiko agertuko edozein pertsona **adimentsuri**? Imanol Unzurrunzaga

Nik beste sentsazio berri bat nahi dizuet erakutsi, gizon **adimentsuek** baizik eduki ezin dutena. Josu Zabaleta

Emakume finak balira, emakume gozoak, adeitsuak eta **adimentsuak** balira, ez litzaidake axolako. Mirentxu Larrañaga

Azken buruan, gizaki **adimentsu** orok duen helburua Jainkoaren gorpuztasunaren ideia baztertzea da. Xabier Kintana

Jakinduria espiritu **adimentsu** eta santua da, bakarra, jarduera anitzekoa, fina, mugikorra, sarkorra, kutsagabea, aldaezina, onzalea, zolia. Elizen arteko biblia

Shaquille O'Nealek Lakersetik alde egiteko nahia zuela jakin eta berehala jarri zuen martxan bere buru **adimentsua**. Berria - Kirola

Robot **adimentsuak** dira. Berria - Ekonomia

Gaur egun metroa, trena edo autobusa hartzeko erabiltzen diren txartelak **adimentsuak** badira ere, makina batean sartu behar dira irakurri eta horrekin edozein eragiketa egin ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Haren aurpegi biribiltxoak ez du oso **adimentsua** denik iradokitzen. Ramon Saizarbitoria

Esperientzia ikaragarrienak ere kontrolatu eta erabiltzeko gauza izan beharko genuke, gogo jakintsu eta **adimentsuaren** bitartez. Javi Cillero

Horregatik oro baino lehenago sortutako jakinduria existitzen da, zeina egina izanik ere, zure hiri garbiaren gogo arrazoidun eta **adimentsua** baita, han goiko zeruetan libre eta betiko dagoen hiria. Imanol Unzurrunzaga

Egitasmo horren helburua astronautentzako espazio jantzi **"adimentsuak**" egitea da. Berria - Gaiak

Pertsonaia maitagarriz beteriko komedia **adimentsua** da Agnes Jaouik zuzenduriko hau. Berria - Kultura

Dirutan eta ondasun materialetan ez naiz aberatsa; ez naiz ederra, ez bizkorra, ez **adimentsua**; baina zoriontsua naiz, eta zoriontsu jarraituko dut! Josu Zabaleta

Afektuak menderatzerakoan ez dela bereizterik ergelaren eta **adimentsuaren** artean. Piarres Xarriton

Eta beraz horrela arima bera da bizidun bezala begetatiboa, sentibera bezala sentsitiboa eta arrazoidun bezala **adimentsua**. Piarres Xarriton

Saiatu zuhur eta **adimentsu** izaten, ez ahaztu nire esanak, berorietatik ez urrundu. Elizen arteko biblia

2 (adizlagun gisa)

Ni ikusia naiz, eroak; ezagutu izan ditut gai batean salbu gainerako guztietan **adimentsu**, argi, zuhur jarraitzen zutenak. Josu Zabaleta

Aitorenseme-jantzian zegoen taldeko batek, ordea, iraindutzat jo zuen bere burua eta, **adimentsu** -hau da, ahal zuen pozoi guztiarekin-, erantzun zion kardinalari. Anjel Lertxundi

3 ***diseinu adimentsu*** *(corpusean ez dago; ETCn **84** agerraldi)*

Diseinu adimentsua ("Intelligent Design" ingelesez) hautespen naturala kontuan izan gabe unibertsoaren sorrera azaltzeko proposamen bat da, horren ezaugarri batzuk hobeki esplikatzen direlakoan eragile adimentsu bat(zu)ek zuzendutako prozesu baten bidez. ETC-entziklopedia

Jakina, kontuak badu zerikusirik **diseinu adimentsuarekin** ere: hautespen naturalaren mekanismoarekin berdin-antzean ukatzen ahal dira hala orduko teologo naturalek defendatutako kreazioa, nola egungo **diseinu adimentsua**. ETC-literatura, saiakera

Bauerrek **Diseinu Adimentsuaren** teorikoekin parekatzen ditu, horren guztiz etsai ageri diren arren, horren oker berberean jausten omen baitira beraiek. ETC-literatura, saiakera

Egia zer den eta zer ez den agintzen duena, gizatiarra ez den zerbait, **Diseinu Adimentsuaren** sustatzaileek behar dutena erabat. ETC-literatura, saiakera

Diseinu adimentsua biziaren sorreraren azalpen bat da, Darwinen ikuspegiarekin bat egiten ez duena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Orain jantzi berriekin heldu dira Kansasera, eta **Diseinu Adimentsua** jarri diote izena. ETC-prentsa

Charles Darwinen eboluzionismoaren aurka Ameriketako Estatu Batuetako eskuin erlijiosoek bultzaturiko '**diseinu adimentsuaren**" teoriak porrot eta garaipen eguna izan zuen atzo. ETC-prentsa

Aurtengo aurrerapen nagusia erabakitzeko orduan, **diseinu adimentsuaren** eztabaidak eragina izan duela ukatu du Sciencek. ETC-prentsa

Horien artean esanguratsuena George Bush dugu, AEBetako presidentea eta "**diseinu adimentsuaren**" sinestuna. ETC-prentsa

4 ***hiri adimentsu*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Hiri adimentsua (ingelesezko "smart city" terminoaren itzulpena) hirigune berezia da, informazio-bilketarako sentsore elektronikoz osatua, eta informazio hori prozesatzeko baliabide teknologikoak dituena, guneko errekurtsoak modu efizientean kudeatzeko. ETC-entziklopedia

Hiri adimentsuaren ideia garatzen ari da, eta telebistak, baloiak edo hortzetako eskuilak ere sareari lotuta egongo omen dira. ETC-prentsa

Hiri adimentsuaren ideiaren aurka dago Caperna. ETC-prentsa

Bai, auto, etxe eta **hiri adimentsuak** ... gure bizitzaren alderdi orotan sartzeko prozesua da eta uko egin behar diogu. ETC-prentsa

5 ***telefono adimentsu*** *(corpusean ez dago; ETCn **68** agerraldi)*

Hasierako telefono mugikorrek deitzeko bakarrik balio zuten, baina teknologiak aurrera egin ahala aplikazio berriak sortu dira, hala nola SMSak edo mezu laburrak, MP3 erreproduzitzaileak, Bluetooth, argazki-kamera, bideo-jokoak, internet, eta abar; eboluzio honen ondorioz, **telefono adimentsuak** jaio dira. ETC-entziklopedia

Telefono adimentsua, hau da, Internetera konektatutako telefonoa, azken urteotako iraultza teknologikoetako bat da. ETC-prentsa

Smartphone edo **telefono adimentsuak** ditugu, ehunka aplikaziorekin: jolasak, metroko bidaia aspergarriak arintzeko, eta argazkiak koloreztatzeko programak. ETC-prentsa

2010. urtean deskribatu zuen nolakoa izan behar duen marketinak **telefono adimentsuaren** aroan. ETC-prentsa

Hor aurkeztu zituzten gizartean lehen **telefono adimentsuak**, lehen telebista pantaila lauak, lehen tabletak... ETC-prentsa

Horri guztiari osagai berriak gehitu behar zaizkio: geolokalizazioa, **telefono adimentsuak** eta desesperazioan edozein lan-baldintza onartuko duen populazio prekarioa. ETC-prentsa

Horregatik deitzen zaie **telefono adimentsuak** edo smartphone. ETC-prentsa

Orain, Applekin batera, **telefono adimentsu** gehien saltzen duen marka da. ETC-prentsa

3.790 milioi ordainduko dizkio Nokiari haren oinarrizko sakelakoei eta **telefono adimentsuei** lotutako diseinu eta ekoizpen aktibo guztien truke, fabrikak, IG eta 32.000 langile barne. ETC-prentsa

Auto modelo berriak, janzkera estilo berriak, soinu berriak, film berriak, **telefono adimentsuak**, sukalde egokituak eta abar. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adimentsu eta** (4); **adimentsua izan** (3); **eta adimentsua** (5); **eta adimentsuaren** (3); **oso adimentsua** (3)

---

adimenzale *izond* adimenaren zalea dena.

Gizaki adimentsu **adimenzaleen** artean pizten direla giza ekintzarik beldurgarrienak. Jenaro Garate

---

adimolde *iz* aditzeko moldea.

Gerta balekie horrelako zerbait Jainkoaren lagunengan ikustea, beren **adimoldeetatik** kanpo dagoena, harriturik dute galdetzen: Zertara datoz zeinu horiek? Joan Mari Lekuona

---

adin **1** *iz* norbaitez mintzatuz, jaio zenetik igaro den denbora. ik **edade**.

Adin eta sexu guztietako atseginzaleok, zuei eskaintzen dizuet lan hau. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zaila da, **adin** batetik hara hainbat urtez landu estilotik aldentzea. Ana Urkiza

Bizitzak gauza asko ematen ditu, kentzen hasten den arte, **adin** batetik aurrera kentzen hasten denean ez da sekula gelditzen. Mikel Hernandez Abaitua

Adin batera etorri denetik, Agerrek sari guti baimentzen dio bere buruari. Aingeru Epaltza

Gitarrarekin joan eta kantuan hasten bazara, mutilak, oro har, pozak txoratzen edukiko dituzu, artean ume baitira mutilak **adin** horretan. Joxerra Garzia

Osaba Basiliok 82 urte ditu, eta erreparoa ere ematen zidan galdera egiteak, **adin** horrekin heriotza gertuegi ikusten baita beste ezertan pentsatzeko, edo hala iruditzen zaigu gazteoi. Pako Aristi

Orduan **adina** zimurrak ziren, sei Marisaren begi bakoitzaren ertzean. Lourdes Oñederra

Adin hori ez ote da lehenik, oroitzapenaren **adina**, eta errespetuarena. Herria

Lehen bezala maite dut aita, eta Margotek aita eta ama maite ditu, baina gure **adina** duzunean, erabakiak zeure kabuz hartu ahal izateko gogoa izaten duzu, gurasoen eskutik zertxobait askatzen hasteko gogoa izaten duzu. Josu Zabaleta

Etsenplu honek balioko al dizu buruan sar dezazun zure alabak nahi duena egiteko **adina** duela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Adina etortzearekin, erretreta hartu ondoan, berriz Ortzaizerat etorri zen bere sort herrirat. Herria

Gauza batzuetan arrazoia baduzula onartzen dizut, baina gogoan izan **adina** eta eskarmentua. Bego Montorio

Galdegin berari, badu **adina** -eta bere buruaren berri emateko. Elizen arteko biblia

Baduk **adina** orain arte gurasoek ezkutatutako hainbat gauzaz ohartzen hasteko. Josu Landa

Adinen diferentzia maila horretakoa denean, beste tratu-molde bat sortzen da, sendoagoa, ene ustez. Txillardegi

Egutxik pentsatu zuen emakume gazte batekin izango zuen azken topaketa izango zela, **adinen** arteko aldea hain baitzen handia. Ibon Uribarri

Adinen piramidearen azterketa. Joxemari Iturralde

Kale-kalekoa naiz ni, kalean jaio eta kalean hazia; gurasoak, berriz, baserrikoak biak, nire **adineko** eta inguruko euskaldun gehientsuenen gurasoak bezala baserria utzi eta kalera jaitsitakoak, fabrikara. Xabier Mendiguren Elizegi

Garai hartan euskara gain behera zihoan, eta zure **adin** ginenean izan genuen horri buelta ematen hasteko aukera eta gogoa. Pello Salaburu

Ageriko gauzei dagokienez haurrak bagina bezala tratatzen gaituztela, nahiz eta barreneko gaiei dagokienez gure **adineko** neskak baino askoz ere helduagoak izan. Josu Zabaleta

Peter bere **adineko** neskekin ibiltzen zen eta niri agurrik ere ez zidan egiten dagoeneko. Josu Zabaleta

Mutikoek beren **adineko** mutikoekin jolasean ibili behar dutela. Irene Aldasoro

Hau guztia gehiegizkoa al da zure **adineko** jokalari gazte batentzat?. Berria - Kirola

Jantzitakoan, bere seriotasuna eta tarteko **adineko** jendearen moduzkotasuna ahazturik, jauzi bi egin zituen gelan, zalutasun handiz orpoekin hankak leunki joz. Jose Morales

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ofizialki bai, **adin** jakin batean ume izateari utzi egiten diogu ofizialki, eta bihurtzen gara lehenik gazte, gero heldu, geroago zahar. Joxerra Garzia

Adin onaren muga aspaldi gainditua, ile urdindua, erretako aurpegi etena eta sukartu batena zirudien bekozkoa ageri zituen. Anjel Lertxundi

Adin nagusiko bost ezkutatuek gaurko egoerari buruz dituzten iritziak emango dizkizut (**adin** txikikoek ezin dute iritzirik izan, eta oraingo honetan behintzat, horretara mugatu naiz): [...]. Josu Zabaleta

Oraindik ere **adin** txikiko umeen herena gaizki elikaturik dago. Iñaki Heras

Adin ertaineko gizon bat zen, luzera baino zabalera handiagokoa, baldarra oso. Joxerra Garzia

Apika **adin** berekoak zituan, belaunaldi berekoak. Mikel Hernandez Abaitua

Nire amaren **adin** beretsuko emakumea, baina beste estilo batekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Herritik ateratzean, **adin** ederreko hiru gizonek, itzalean jarririk daudela, agur sustagarri bat helarazten didate. Piarres Aintziart

Adin ezberdinetako idazle andrazkoak bildu ginelako, gustu eta estetika ezberdinetakoak. Ana Urkiza

Eusebiok izen faltsuak eta **adin** faltsua eman zizkion, idazkariak berak aholkaturik. Eneko Bidegain

Errusiarrek Txetxenian ezarririko Konstituzioak errepublikako presidente izatea galaraziko lioke Kadirovi, kargua betetzeko gutxieneko **adina** 30koa dela zehazten baitu. Berria - Mundua

Adin zehaztugabeko emakume txiki bat da aurtengo inspektorea. Joxerra Garzia

Erretiratzeko **adina** 85 urtera atzeratu beharko litzateke. Berria - Ekonomia

2050ean, aurrez ikusi ezin dugun aldaketarik gertatzen ez baldin bada, espainolen batez besteko **adina** 54,3 urtekoa izango da, Europakoena baino 16 urte zaharragoa, Nazio Batuen arabera. Pello Salaburu

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Unibertsitatean badirelako, eta gero eta gehiago izango dira gainera, **adin** epe horretatik kanpo daudenak, bai gazteagoak bai zaharragoak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Adin kontua izango da, apika, neu ere hasiko naiz uste baino lehenago neure herriaren bila, neure neurrira egindako Arkadia. Xabier Montoia

Arimak nola ahalko du gorputzarekin batera indartu eta **adin**-lore desiratua harrapatu, jatorrian bertan sorkide ez bada? Xabier Amuriza

Ezkondu, ia behin bakarrik ezkondu ohi da bat; donazio edo testamentuak ez dira egunero egiten; behin bakarrik iristen da **adin**-nagusitasuna. Iñaki Iñurrieta

Adin taldeak Hego Euskal Herrian (2000). Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Adin irizpidea ez da kontuan hartzekoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Pasadizoak ezin hobeto islatzen du gure **adin** modukoek mutikotan izan genuen sexu heziketa. Orain mende erdiaren **adin**-jira horretan gaudenoi dagokigu gure seme-alaba eta ikasleei azaltzea nolakoa izan zen guk jaso -eta jasan- genuen hezkuntza. Joxerra Garzia

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horixe da, nik uste, lore-**adineko** neskatoek gogoratzen dutena. Xabier Amuriza

Datozen urteotan izango diren unibertsitate **adineko** (20-25) gazteen kopuru eta unibertsitarioen kopuruen aurreikuspenak. Seguruenik, erretiro **adina** 65 urtetik 67ra igoko da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Frantziarrak, erretreta **adina** atzeratzeko Europan egin diren erreformen aurka. Berria - Ekonomia

6 *irid/hed*

Horri esker, Esne Bidean sortu ziren izar zaharrenen **adina** zehaztea lortu dute. Berria - Gaiak

7 ***adin bateko*** adin handikoa.

Obispoa **adin batekoa** zen, eta ez zebilen bihotzetik oso ongi. Inazio Mujika Iraola

Adin bateko emakume ttiki beltzaran batek zabaldu zidan atea. Alberto Ladron Arana

1934ko udaberri arrats batean, **adin bateko** jaun batek Senaren gaineko zubi batetik ibai ertzera joaten diren harmailak jaisten zituen. Matías Mujika

Hogeita bost urte betez gero guztiok gara **adin bateko**. Oskar Arana

Kotxezain zaharrek eta **adin bateko** zerbitzariek ezagutzen zuten, aitaren antza zela medio. Xabier Olarra

Dirudienez garai hartan Pasaian **adin bateko** gehienek, andre langile apalek ere, frantsesa bazekiten solasean moldatzeko adina. Koldo Izagirre

8 ***adin erlatiboaren efektu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Kontuan hartzekoa da baita ere **adin erlatiboaren** efektua deituriko prozesu fisiologikoa. ETC-prentsa

Adin erlatiboaren efektuak AEE (edo RAE ingelesez) pertsona baten jaiotze hilabetearen garrantzia, arlo akademiko eta kirolean, aztertzen duen fenomenoa da. ETC-entziklopedia

9 ***adin gestazional*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ikerketa honen arabera, **adin gestazionala** eta erditze goiztiarraren arriskua ezar daitezke plazentako bederatzi geneen mRNA maila neurtuz. ETC-prentsa

10 ***adin handi*** halako urtetatik gorako adina.

Zuriz jantziriko apaiz bat, **adin handi** eta itxura beneragarrikoa, agertu zitzaion anai Eliasi, eta esan zion: [...]. Askoren artean

Jainko Aitari ematen zaion **adin handiak** aldiz gogoratzen digu haren probidentzia eta larderia handia. Piarres Xarriton

Adin handian, esate baterako, maskuriko irteera zaintzen duten muskuluek kontrola galtzen dute, eta inkontinentzia sortzen da, eritasun gogaikarri bat, uste baino arruntagoa. Irene Aldasoro

Eleazar lege-maisu nagusienetakoa zen, **adin handikoa** eta itxura bikainekoa. Elizen arteko biblia

Rosemonde andrea da gure ikuspegiaren arabera ere **adin handikoa** den pertsonaia bakarra. Jon Muñoz

Adin handian, esate baterako, maskuriko irteera zaintzen duten muskuluek kontrola galtzen dute. Irene Aldasoro

Gizon askok dute zaletasun hori, **adin handikoek**, gehienbat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Adin handi [...]: Heriotzaren beldurraren luzapen ez-ohikoa. Xabier Olarra

Makrobio [...]: Jainkoek ahaztu eta **adin handiraino** bizitzen dena. Xabier Olarra

11 ***adin nagusi***

Izadiarenak tartean du **adin nagusiaren** gabezia. Andres Urrutia

Giza bizitzan dauden hiru **adin nagusi** zeharkatu ditu Markezek Caracaseko bere kontzertuetan. Pako Aristi

Horrelako zakurrak edukitzeko baimena, **adin nagusia** izan eta gorputzez eta buruz gai direnei bakarrik emango Gotzon Garate

Hitz haien patetismoak eta erabatekotasunak zirrara handia eragin zidaten, eta uste izan nuen **adin nagusirako** bidea mugarritzen zuten auzietako bat zela hura, Errege Magoena edo sexuarena bezala. Bernardo Atxaga

12 *adin nagusigo*

Nire jendeak egin ohi dituen kontuen arabera, oraindik ume bat besterik ez naiz, eta '**adin-nagusigora**", Eskualdean diogun bezala, heltzeko lau urte falta zaizkit. Agustin Otsoa

13 *adin nagusiko*

"Eskandalagarria da terrorismo delituekin zerikusia duten delituetan, adingabekoei legedi berezia aplikatzea, Auzitegi Nazionaleko epaitegi berezi batera eramatea eta epaileak **adin nagusikoei** ematen zaien tratamendu bera ematea Berria - Euskal Herria

Adin nagusiko bost ezkutatuek gaurko egoerari buruz dituzten iritziak emango dizkizut (adin txikikoek ezin dute iritzirik izan, eta oraingo honetan behintzat, horretara mugatu naiz): Josu Zabaleta

Ezagun dute **adin nagusikoekin** sarritan egon direla. Xabier Etxabe

Aldamenean **adin nagusiko** Singapurren bizi duzun emakume ingeles bat; menturak erakarria duzu. Jose Angel Irigaray

Landakoetxe baserritarrak kaleak husteko lana hartu zuen, jendea etxera bidaliz, armaren bat zeukan eta **adin nagusikoa** zen hobbit oro izan ezik. Agustin Otsoa

Adin nagusikoa. Oskar Arana

Ni lehen urtean **adin nagusiko** jokalariekin aritu nintzen; 30 urtetik gorakoak ziren Berria - Kirola

14 *adin nagusitasun*

Euskarari "aberri hizkuntza» diotson alderdiak mende bat pasatxoko **adin nagusitasuna** eduki eta normalizatzeko "lehen plana» oraingoa izateak aho zabalik utzi nau Berria - Euskal Herria

Hurrengo asteazkenetik aurrera, **adin nagusitasuna** ospatzeko antolatutako ekitaldietan beste horrenbeste biltzea espero dute Berria - Harian

Ezkondu, ia behin bakarrik ezkondu ohi da bat; donazio edo testamentuak ez dira egunero egiten; behin bakarrik iristen da **adin-nagusitasuna**. Iñaki Iñurrieta

Seme-alaben **adin nagusitasunarekin** amaitu egiten da gurasoen aginpidea, ondorio zibilei dagokienez. Andres Urrutia

Oso gazte erabaki zuten futbolari izan nahi zutela, eta **adin nagusitasuna** lortu aurretik Madrilen ziren biak futbolari izateko ametsa bete nahian Berria - Kirola

Hemezortzi urterekin, **adin nagusitasuna** lortu zuenean, 1932an, amarekin Frantziara aberriratu zuten Berria - Kultura

Euskararen unibertsitaterako sarrera horrek, nonbait, **adin nagusitasuna** ematen dio euskarari kultura hizkuntza gisa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

15 *adin piramide*

Azkenik, grafiko bat, hazkunde-kurba bat, **adin-piramide** bat, banaketa-hodei bat enuntziatuak dira: laguntzen dieten esaldiei dagokienez, euren interpretazioa edo iruzkina dira; ez dira euren baliokideak: froga kasu askotan dago, esaldi kopuru amaigabe bat bakarrik izan liteke enuntziatu-sorta horretan formulatzen diren osagai guztien baliokidea. Xabier Arregi

16 *adin txiki* halako urtetatik beherako adina.

Eta **adin txiki** hartan bihurri samarra izan banintzen ere, aldaketa hartatik aurrera, asko ahalegindu nintzen txintxoa izaten eta izugarrizko ikas zakua egin nintzen. Ana Urkiza

Gezurra iduri badu ere, joan-etorri anitz bizi izan ditu bere **adin txikian**. Aingeru Epaltza

Etxeetan sartu dituzte Urduñan zeuden **adin txikiko** atzerritarrak Familia osoak eta **adin txikiko** haurrak, *gardavüak* irauten zuen garaian, anitzetan aiton-amonekin, auzokoekin geratzera behartuak ziren. Berria - Euskal Herria

Harry oraindik **adin txikiko** aztia zen, eta aztien legeak debekatu egiten zion eskolatik kanpo magia erabiltzea. Iñaki Mendiguren

Denboraldia kontratu profesionalik gabe hasi zuela Cesc-ek, Ingalaterrako legediak horretarako baimenik ematen ez ziolako, **adin txikikoa** izateagatik. Berria - Kirola

Preso asko eta asko emakumeak edota **adin txikikoak** dira. Berria - Mundua

Beste hiru anai-arreba, **adin txikikoak**, bazituen Errusian. Matías Múgica

Adin txikikoek ezin dute iritzirik izan, eta oraingo honetan behintzat, horretara mugatu naiz. Josu Zabaleta

Zuen seme-alabek ere, are **adin txikikoek**, entzungo dute, eta horrela ikasiko dute Jaunari, zuen Jainkoari, begirune izaten. Jose Antonio Mujika

Mendebaldeko gizarte taldeen ekimenek umeen edo **adin txikikoen** lana galarazi eta inongo alternatibarik proposatzen ez badute, zenbait herrialdetan egoerak okerrera egin dezake, alde batetik bere lana familia aurrera atera ahal izateko beharrezkoa baita, eta bestetik, ume eta **adin txikikoen** lana debekatzean, sarritan, lanik ez egitearen alternatibak oraindik ere okerragoak izan daitezkeelako. Iñaki Heras

Behan, 1923an Dublinen jaioa, 1939an Liverpoolen atxilotu zuten IRAkoa zelakoan, eta hiru urte igaroarazi zizkioten Borstalgo **adin txikikoentzako** kartzelan. Pablo Sastre

Zenbat urte eskatzen ote zuten **adin txikikoez** abusatzeagatik? Horrexek kezkatzen zuen. Patxi Iturritegi

17 *adin txikiko*

Kontsumitzailearengan (**adin txikikoaren** baitan, bereziki) inolako eskrupulu edo erruduntasun-konplexurik ez sortzeko, sistemak begien bistatik apartatuko digu jan beharrekoa, hori jateari uko egiteak galera eskerga ekarriko lioke-eta. Edorta Agirre

2. Pomaricon, Pugliako mendietan dagoen herrixkan, guraso batzuek alaba bakarra zuten, **adin txikikoa**, biziki maite zutena. Askoren artean

Legez kanpoko kontratazioen inguruko protokoloa azaltzen da idazkian, baita **adin txikikoei** eginiko tratu txarren ingurukoa, edo lanean harrapatuz gero jarraitu beharreko bidearen ingurukoa ere. Berria - Ekonomia

Eskola kirolean, **adin txikiko** neskak pilotan aritu daitezen, Ikastolen Elkarteko erakundeekin elkarlanean jardutea aurreikusten da, jolasen bidez eskupilota eta pala landu, eta lehiaketak antolatu. Berria - Kirola

Gainera, **adin txikikoak** zeuden tartean. Jon Muñoz

Adin txikikoen irakasle izan naizenez, ondotxo dakit zenbateraino petralak izan litezkeen gurasoak, eta beti saiatu naiz gurasokeria saihesten. Joxerra Garzia

Familia osoak eta **adin txikiko** haurrak, gardavüak irauten zuen garaian, anitzetan aiton-amonekin, auzokoekin geratzera behartuak ziren, non ez zituzten etxekorik gabean, asistentziara eroaten norbait agertu artean. Itxaro Borda

Gero karabineroenera joan behar izan genuen **adin txikiko** mutiko baten bilaketa jakinarazpen bat iritsi baitzen, eta horrek oinarri zuen komun publikoetako Vittorio Emanuele II.-ak ekarritako arpilatze eta ustelkeria salaketa. Pello Lizarralde

Hain zuzen, ez da ageri formula horietan haiek delituak esesteaz arduratzen zirenik, ez eta **adin-txikikoei**, elizei edo pertsonen egoerari zegozkien auziez ere. Iñaki Iñurrieta

Hamasei urteko **adin txikiko** bati egotzi diote haurra karrikan utzi izana. Berria - Euskal Herria

Txikigarrien erabilerak eta sermoirik egingo ez duelako oharrak lagundu egiten dute, zalantzarik gabe, entzuleei hizketan ari den anaia egiaz **adin txikiko** haur bat dela erakusten. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

EITBko Betizu umeentzako saioak izen horretako behi basatiak ditu protagonistak eta, halaber, beti zu mezua luzatzen dio **adin txikiko** ikusleari. Iñaki Arranz

Beste hiru anai-arreba, **adin txikikoak**, bazituen Errusian. Matías Múgica

18 *adin txikitasun* adin txikikoaren egoera.

Adin txikitasuna deitu zion inoren esanetara makurtuta ibiltzeari. Berria - Kultura

Printzeak esperientzia izatea nahi bazen, **adin txikitasunari** beldur bazitzaion, eunukoek bata bestearen atzetik haurrak tronuan jartzea nahi ez bazen, zuzen asko ezarri zen horrelako oinordekotza-ordena bat. Iñaki Iñurrieta

19 *adinean aurreratu*

Urte asko zen, Jaunak inguruko etsaiengandik libraturik, Israel bakean bizi zela. Josue zahartua zegoen, **adinean aurreratua**. Elizen arteko biblia

-Gaztetan, artean ikuspegi erromantikoak harrapaturik gauzkala -dio gizonak-, uste izaten dugu etengabe hautatzea dela bizitza; **adinean aurreratu** ahala, ordea, bestela ikusi ohi dugu. Imanol Zurutuza

Adinean aurreratu ahala gutxitan egiten bazuten ere, haserretzen zirenean polito irteten zitzaien mordoilo ulergaitz hura. Urtzi Urrutikoeetxea

Espartarki hazi zituen hiru seme, eta ikasketak eginarazi; **adinean aurreraturik**, ordea, ez zuen eragozpenik jarri kristau mediku zahar bat, bizar-handios eta gogoiluna, senartzat hartzeko, eta orduz geroztik zekenkeriara eta arrarotasunera makurtuz joan zen, hainbat nola gaztetan izan baitzen erregekiro eskuzabal, emakume eder eta oso maitatuak ohi direnez. Juan Garzia

(Are gehiago, helduaren garunak ez du jadanik haurraren garunaren plastizitaterik; horregatik da, hain zuzen ere, zailago, hizkuntza berriak ikastea edo trebetasun berriak bereganatzea **adinean aurreratu** ahala. Xabier Olarra

Cox laboraria **adinean aurreratu** samarra zen ordurako, eta bere odoleko semerik ez zuenez gero, laguntza gehiagoren premia zuen basetxean aritzeko. Mirentxu Larrañaga

-Hitz egin ezak hik -esan zion Blaustek, friulanoz, Susannari, hura baitzen **adinean aurreratuena**. Josu Zabaleta

20 *adinean aurreratuxe*

Dozena bat bisitari dira, **adinean aurreratuxeak**; fin berba eginda, zaharrak direla esango zenuke lagun artean. Urtzi Urrutikoeetxea

Adinean aurreratuxeak gaudenez gero, epe laburrean beharko dik izan nahitaez. Jon Muñoz

21 *adinean sartu* zahartu.

Hantxe aurkitu bainuen Antonio, uretan igeri eta arrain bat iduri, besoak eta zangoak airos baino airosago higitzen zituela, berrogeita hamar urteko gizon **adinean sartua** zen arren orduko. Joan Mari Irigoien

Oso gizon garaia zen, **adinean sartua**, eta zaku baten antzeko beroki zabala zeraman soinean. Jose Morales

Adinean sartua izanagatik ere, azal fineko aurpegi argitsua zuen emakumeak. Anjel Lertxundi

Gaur egun, **adinean sartuta** egoteak ez dakar nahitaez errespetagarritasuna berekin. Antton Olano

Lepoa panparroi gorantz begira duen nobleziako emakume **adinean sartuaren** indioilartasuna zaio bere morroiari mespretxuaren ikur **Adinean sartutako** langile ugari daude Urdulizko lantegian eta urtean 10-15 lagunek hartzen dute erretiroa. Harkaitz Cano

Oftalmologo gehienek bezala, **adinean sartuxe** zirenean ikusmena galdutako pazienteei kenduak zizkien ia beti begi-lausoak, eta halako gaixoek, kirurgiaren emaitza ona bada, ia berehala berreskuratzen dute ikusmen normala, inola ere ez baitute galdua ikusteko gaitasuna. Xabier Olarra

Don Alejandro aire duineko gizaseme bat zen, **adinean sartuxea**. Juan Garzia

Langabezian zeuden gizonak ziren, **adinean sartuxeak** gehienak. Harkaitz Cano

22 *adineko pertsona*

Hala eta guztiz ere hemen, Atzeko Etxe honetan, guretzat baino **adineko pertsonentzat** egoera zailagoa dela diotenak ez dira ohartzen guk askoz ere arazo gehiago ditugula. Josu Zabaleta

Ibai bakarrik bizi zen **adineko pertsona** zen, eta betidanik atzerritarrekin konfiantza gutxi izandakoa, Gorka, zaintzailea, Kolonbiatik etorri berria. Berria - Kultura

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Planak ohartarazi du gaixotasun depresiboak direla **adineko pertsonak** ospitaleratzeko arrazoi nagusia. Berria - Euskal Herria

1998ko emaitzekin alderatuz gero, 15 minutu gutxitu da egunero **adineko pertsonak** zaintzen pasatzen den denbora. Berria - Euskal Herria

Adineko pertsonak goiz lotaratu eta goiz jaikitzen direnez gero, nahi duzunean, mesedez... -esan ondoren emakumea zutitu egin zen eta alboko gelako atea giltzaz ireki zuen. Ibon Uribarri

Hori duk ehizaldiaren egunean gertatu zena -esaten du, eta zehaztasunez zerbait kontatu duten **adineko pertsonen** gogobetetasun bereziaren durundia du ahotsean. Xabier Olarra

Adineko pertsona asko zaindu zituela esan zuen Nemiak, baina Santos izan zela espezialena. Unai Elorriaga

23 *adinekoa izan*

Adinekoa zelako -edo, matematikako beste irakasle bat ere kontratatu zuten, haren erabateko erretiroa aurki zetorrela-eta, ordu batzuk kentzeko eta ordezkotza prestatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaur egun, Vangelike, **adinekoa izanagatik** ere, itxura oneko emakumezkoa da; esan nahi baita, pozik eta zoriontsu bizi dela bere buruarekin, eta bere gizonarekin ere bai. Josetxo Azkona

24 *adinetara heldu*

Dena dela, **adinetara helduak** garenok erranen dugu halere, XX. mendean Euskal Herria ez dela lo egon eta sekula amestuko ez genituen lanabesak eskuratu ditugula gure hizkuntzaren, kulturaren eta herriaren lantzeko. Piarres Xarriton

Zeren Nenbo beltza baitzen eta bertze laurak zuriak, eta hautu hartan orin bat baino gehiagorako nahi bainuen nik Nenbo, eta zeren Laura haur bat baitzen eta Rosa de Osorio **adinetara heldua**, eta nekez lot zitezkeen haien gorputz zatiak. Joan Mari Irigoien

25 *adinez nagusi*

Aspaldi onartu genuen Euskadi eta EB **adinez nagusi** direla. Berria - Euskal Herria

Ongi zagon, luze gabe **adinez nagusi** izango haiz, eta zaindaritzaren hersturetatik at. Antton Olano

Haiek eginak zituzten guraso plantak eta nik, berriz, seme **adinez nagusiarenak**. Jon Muñoz

Iaz, ezin izan zuen erreferendumean bozkatu, ez baitzen **adinez nagusi**. Berria - Mundua

Dávilak dio .419 Karlos IX.a hamalau urte bete baino lehen egin zutela **adinez nagusi** Rouengo parlamentuan, legeek denbora unetik unera zenba zedin agintzen zutelako tutorepekoaren ondasunak itzultzeari eta administratzeari zegokionez. Iñaki Iñurrieta

Monika **adinez nagusia** zela erantzun nien, ez zutela horrenbeste kezkatu beharrik, eta eskertzen niela beren arreta. Joxean Agirre

-Inork ezin dik erabaki **adinez nagusia** izan arte. Jon Muñoz

Gainera, jokalariek hedabideen aurrean ez hitz egiteko hartutako erabakia "errespetatu» egiten duela esan zuen: "Bi jokalariak **adinez nagusi** dira, eta erabaki hori norbanakoaren askatasunari dagokio». Berria - Kirola

-Ba, Ralph..., **adinez nagusia** izateko, oso gutxi ikusi duzu bizitzan. Fernando Rey

26 *adinez txiki*

Anartean, atzo iluntzean baieztatutako datuen arabera, 11 dira dagoeneko ezbehar honetan hildakoak, hauetatik zortzi **adinez txikiak** direla. Berria - Mundua

Nahi nuke lege erromatarrak irakurtzen dituztenek ondo bereiztea batetik hipotesi moduko horiek eta bestetik senatu-kontsultuak, plebiszitoak, enperadoreen konstituzio nagusiak eta gauzen izaeran, emakumeen hauskortasunean, **adinez txikien** ahulezian eta baliagarritasun publikoan oinarritutako lege guztiak. Iñaki Iñurrieta

Pajetta kartzelara joan zen, **adinez txikientzako** erreformatorio batera. Fernando Rey

Baina izan behar zituen bere hamasei-hamazazpi urte; eta haren aldamenean bazen beste bat, **adinez txikiagoa**, baina askoz ere ausartagoa, pozik eta lokazturik zetozen hiru lagunei finko begiratzen ziena. Josu Zabaleta

27 *adostasun sexualeko adin* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Greziar legediari dagokionez, aipagarria da honako xehetasun hau: **adostasun sexualeko adina** 15 urtekoa den arren, badu xedapen zehatz bat harreman homosexualen kasurako, zeinetan esaten duen gizonen arteko harremanetan adostasunerako adina 17 urtekoa izango dela. ETC-entziklopedia

28 *eskola adin*

Gehienek Afrikako premiak bete beharko dituzte; Hego Amerikan **eskola adinean** dauden umeen kopuruak behera egingo du, eta han kontrako fenomenoa izango dute. Berria - Gaiak

29 *hirugarren adin* zahartzaroa.

Tira, adinaren kontua izango da, gorroto diot **"hirugarren adina"** esapide horri, amerikarren beste zurikeria bat. Karlos Zabala

Hirugarren adina eufemismoaz deitzen zen aroa aski goiz hurbilduko zitzaigun; ez dea hala Joana? Itxaro Borda

Hirugarren adinean pobrezia ezkutu handia dago, baina ez ikusiarena egiten da. Berria - Harian

Ezetz, **hirugarren adinekoak** ez zirela aprobetxategi batzuk. Joan Mari Irigoien

Ez daukat obsesioa **hirugarren adinekoekin**, baina atsegin ditut edadeko emakumeen jarrerak aztertzea. Berria - Kultura

Prebentziorako oso gomendagarria da [ura], **hirugarren adineko** pertsonentzat batez ere. Berria - Euskal Herria

Nik bake santuan egon nahi diat; aspaldi joan zitzaidaan niri **hirugarren adineko** turismoa egiteko sasoia, aitu? Jon Muñoz

Hauteskunde Batzordeak hautagaitza bakarra bota zuen atzera **Hirugarren Adinaren** Defentsarako Plataforma, irregularkasun formal bategatik. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adin bat (5); **adin batean** (6); **adin bateko** (19); **adin batera** (14); **adin batera iritsi** (6); **adin batetarat** (9); **adin batetik** (38); **adin batetik aurrera** (24); **adin bera** (10); **adin berbera** (6); **adin berean** (5); **adin bereko** (32); **adin berekoa** (6); **adin berekoak** (20); **adin bertsuko** (10); **adin bertsukoa** (7); **adin bertsukoak** (10); **adin ederra** (39); **adin ederra bildurik** (13); **adin ederrean** (5); **adin ederreko** (13); **adin ederrekoak** (5); **adin ederrekoek** (8); **adin ertaineko** (21); **adin ertaineko emakume** (6); **adin ertaineko gizon** (7); **adin eta** (24); **adin ezberdinetako** (8); **adin gordinean** (8); **adin goxoa** (11); **adin goxoa elkarte** (7); **adin guzietako** (28); **adin guzietakoak** (21); **adin guztietako** (48); **adin guztietako jendea** (13); **adin guztietakoak** (5); **adin guztietan** (5); **adin handi** (5); **adin handia** (8); **adin handiko** (8); **adin handikoa** (6); **adin hartan** (7); **adin haundia** (10); **adin haundiko** (5); **adin hori** (15); **adin horrekin** (15); **adin horretako** (20); **adin horretan** (56); **adin horretara** (7); **adin horretatik** (5); **adin hortako** (11); **adin hortan** (10); **adin hortarat** (5); **adin jakin** (8); **adin muga** (6); **adin mugarik** (6); **adin nagusiko** (5); **adin nagusitasuna** (8); **adin tarte** (33); **adin tarte horretako** (11); **adin tartea** (11); **adin txikiko** (34); **adin txikikoa** (5); **adin txikikoak** (18); **adin txikikoek** (6); **adin txikikoen** (25); **adinak eta** (15); **adinak ez** (12); **adinarekin ez** (6); **adinaren arabera** (23); **adinaren erdia** (5); **adinaren eta** (16); **adinaren gatik** (6); **adinaren kontuak** (6); **adinari dagokion** (6); **adinari dagokionez** (8); **adinean aurrera** (44); **adinean aurrera egin** (11); **adinean aurreratu** (6); **adinean aurreratua** (5); **adinean dauden** (8); **adinean ez** (10); **adinean gora** (7); **adinean han** (5); **adinean sartua** (8); **adinean sartutako** (6); **adineko bat** (10); **adineko batek** (5); **adineko bi** (6); **adineko emakume** (16); **adineko emakume bat** (10); **adineko eta** (14); **adineko gizon** (33); **adineko gizon bat** (10); **adineko gizon batek** (6); **adineko jende** (15); **adineko jende asko** (5); **adineko jendea** (11); **adineko jendeak** (17); **adineko jendearekin** (5); **adineko jendearen** (7); **adineko jendeeri** (7); **adineko mutiko** (7); **adineko mutil** (6); **adineko neska** (6); **adineko pertsona** (12); **adineko pertsonak** (9); **adineko pertsonentzat** (5); **adinekoa zen** (5); **adinekoak dira** (5); **adinekoak eta** (12); **adinekoak ziren** (10); **adinekoen artean** (5); **adinekoen bazkaria** (5); **adinekoen elkarte** (17); **adinekoen elkarte hunek** (16); **adinekoen elkarteak** (9); **adinekoen eta** (5); **adinekoen finala** (5); **adinera heldu** (7); **adinera iristen** (5); **adinez eta** (9); **adinez nagusi** (10); **adinez nagusia** (7); **adinik ez** (6); **adinik gabeko** (5); **adinik hoberenean** (6); **aitaren adinaren** (5); **baina adin** (8); **behin adin** (8); **bere adin** (22); **bere adin bereko** (5); **bere adinarekin** (6); **bere adinari** (7); **bere adinean** (22); **bere adineko** (41); **bere adinerako** (16); **beti gazte adinekoen** (14); **bi adin** (6); **da adin** (14); **dira adin** (10); **diren adin** (5); **du adin** (5); **dute adin** (12); **edo adin** (7); **edo adinekoak** (5); **edozein adinetako** (5); **edozein adinetan** (5); **egiteko adinean** (5); **emakume adineko** (5); **ene adineko** (8); **ere adin** (12); **eta adin** (85); **eta adin guztietako** (9); **eta adin txikiko** (5); **eta adinak** (11); **eta adinaren** (8); **eta adinean** (10); **eta adineko** (29); **eta adinekoak** (10); **eta adinekoen** (6); **eta adinez** (7); **gazte adinekoen** (16); **gazte adinekoen elkarte** (16); **gazte eta adineko** (13); **gizon adineko** (5); **gure adinean** (16); **gure adineko** (13); **heriotze adin** (8); **heriotze adin ederra** (5); **hire adinean** (9); **hirugarren adineko** (13); **hirugarren adinekoak** (13); **hirugarren adinekoek** (6); **hirugarren adinekoekin** (6); **hirugarren adinekoen** (23); **nire adin** (19); **nire adinarekin** (5); **nire adinean** (27); **nire adineko** (32); **nire adinekoa** (10); **tarteko adineko** (5); **zein adin** (6); **zer adin** (17); **zitzaion adin** (5); **zuen adin** (6); **zuen adinean** (5); **zure adin** (6); **zure adinean** (15); **zure adineko** (10)

---

adina 1 erkaketan, berdintasuna adierazteko erabiltzen den hitza. ik **bezainbat**.

Ez da bidezkoa neuk bakarrik familia oso batek **adina** ordaintzea. Juan Kruz Igerabide

Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ongi eskolaturiko ikaslea irakaslea **adina** izango da. Elizen arteko biblia

Berak orain zuen **adina** zukeen hark orduan. Elena Touyarou

Zeren uste baitut, nahiz agian ez naizen batere zuzen, ez duzula guk gure garaian irakurtzen genuen **adina** irakurtzen. Pello Salaburu

Denok arraza berekoak gara! Gure seme-alabak badira besteenak **adina** ! Elizen arteko biblia

Gizona ez al da txakur bat **adina** ? Anjel Lertxundi

Horrela egin dut eta egingo ere, ni **adina** badirela-eta harro dauden horiek aitzakiarik izan ez dezaten. Elizen arteko biblia

Hauek ziren Gaden leinutik etorritako gudalburuak; haietarik txikienak ehunek **adina** balio zuen, eta handienak milakadina. Elizen arteko biblia

Tori dagokizuna eta zoaz; zuri **adina** eman nahi diot azkenengo honi ere. Elizen arteko biblia

Hautsa **adina** zilar pilatu du, kaleetako lokatza **adina** urre. Elizen arteko biblia

Putzu **adina** harribitxi. Berria - Kultura

Ibiltzen ahal zarete mundu osoan, baina Italian **adina** zerrikeria ez duzue inon aurkituko. Josu Zabaleta

Hitz gutxi izango dira kritikaren hiztegian "adierazgarritasun" hitzak **adina** hurbilketa eta gaizki-ulertze eragin duenik. Josu Zabaleta

Liburuaren akatsak **adina** amorrarazten ninduen akatsaren arrazoia ez jakiteak. Anjel Lertxundi

Ate honetan biontzat **adina** leku zagok. Juan Kruz Igerabide

Arabak ia Bizkaiak **adina** iruzur azaleratu zuen, herrialdearen ekonomia hiru aldiz txikiagoa izanik. Berria - Ekonomia

Otso-talde batek **adina** ume izan ditzala. Fernando Rey

Zeren lehen astekoek egingo dioten on **adina** kalte egingo baitiote bigarrengoek. Patxi Altuna

Auzibide **adina** araubide. Berria - Harian

Bada zenbaki **adina** oinarri. Jon Muñoz

Nik horretarako **adina** diru ez badut, nola izan dezakezu zuk, etxea aseguratuz gero? Xabier Olarra

Jexuxek **adina** urte baditu. Xabier Etxabe

Orduantxe eta bat-batean pobretu zela, ez zituelako sakelan sentitzen azken egunetan eduki zituen **adina** billete. Matías Mujika

Jainkoaganako begirune **adina** deboziorekin errezatzen zituen liturgi otoitzeko orduak. Askoren artean

Bere herriak **adina** , bere denborak, egin zion huts Miranderi. Joxe Azurmendi

Liskar horiek berari **adina** niri dagozkidala iruditzen zait. Josu Zabaleta

Berak **adina** behar ditugu guk ere. Josu Zabaleta

Asko maite du, baina Hans **adina** ez. Josu Zabaleta

Etsai izan ditu, edo ez oso lagun, kultura, dirua, denbora, zenbakia, eraginkortasuna edo berdintasuna; errealitatea **adina** fantasia ere; seriotasuna bezainbat txoro-haizea. poema zaharrekin ez baitzuten lehen **adina** barre egiten. Iñaki Segurola

Zeren uste baitut, nahiz agian ez naizen batere zuzen, ez duzula guk gure garaian irakurtzen genuen **adina** irakurtzen. Pello Salaburu

Trubetzkoy-ren proposamen teorikoek ez zuten izan merezi **adina** oihartzun. Lourdes Oñederra

Ez dago, beraz, errealitate bakar bat; errealitate ugari daude, errealitatearen jasotzaileak edo errealitatea jasotzeko moduak **adina** . Berria - Kultura

-Ai zu, urtez **adina** gaiztakeriaz betea zaudena! Jose Antonio Mujika

2 (-tzeko atzizkiaren eskuinean)

Heldulekuari eragitean, zapaldu egin nion sabela nire besoarekin, oso gutxi, bere biguntasuna sentitzeko **adina** . Bernardo Atxaga

Behin, bihurritutako hanka sendatu nion mando bati, eta 10 erreal irabazi nituen, gazta bat erosteko **adina** . Bernardo Atxaga

Frantsesa bazekiten solasean moldatzeko **adina** . Koldo Izagirre

Denbora behar izan nuen eseri eta urrutira begiratzeko **adina** adore biltzeko. Koro Navarro

Gorakada hark benetako jakintzaren teilaturaino jarraitzeko **adina** indar zeukan. Bernardo Atxaga

Jaunaren etxera emaitzak ekartzen hasi zirenez geroztik, asetzeko **adina** janari izan dugu, eta asko utzi dugu sobera. Elizen arteko biblia

Kamioia bai, baina gasolina falta genuen Donostiaraino iristeko **adina** . Inazio Mujika Iraola

Erdilunetan nago, baina oraindik bada idazteko **adina** argi. Josu Zabaleta

Zigor nazatela gogor jainkoek, nirekin diren lagun hauek Samaria horretatik eskukada bana hartzeko **adina** hauts gelditzen bada. Elizen arteko biblia

Pixkana-pixkana atertu egin zuen, baina kalean bazen erretratua goitik behera estaltzeko **adina** lokatz. Juan Kruz Igerabide

Gaur arratsaldean Jaunak okela emango dizue jateko, eta bihar goizean asetzeko **adina** ogi. Elizen arteko biblia

Izan beza oinak beratzeko **adina** olio. Elizen arteko biblia

Moisesek ikerketa egitera bidali ninduenean bezain indartsu nago oraindik ere; orduan **adina** kemen dut borrokatzeko eta edozein eginbeharretarako. Elizen arteko biblia

Ez genuke inoiz eragozpen horiek orekatzeko **adina** abantail aurkituko. Isabel Arrigain

Sentipen hori aztertzeko **adina** denbora izan diat. Xabier Olarra

Beti esaten genuen etxe honetan bazela beste pertsona bat edukitzeko **adina** leku eta janari, baina ez genituen Kugler eta Kleiman ardura gehiagoz kargatu nahi. Josu

Zabaleta

Autotik irtetean linterna eskuan zeraman arren, ez zuen segidan piztu, hodei arteko ilargi izpi batek eroso ikusteko **adinako** argitasun zabaltzen baitzuen inguruan. Aitor Arana

Aski galduta nenbilela azkenaldi hartan, koltxoi bat erosteko **adina** dirurik gabe. Bernardo Atxaga

Era berean, ez dute helduek **adina** baliabide kanpoko arriskuei aurre egiteko. Berria - Gaiak

-Orain sartzeko **adinako** presa izango ditek orduan irteteko -erantzun zion besteak. Josu Zabaleta

3 *adina egin*

Hala ere, galanki kosta behar zaio maisuak **adina egiten** Berria - Kirola

Bera izan da onena Tourrean azken bost urteetan, zergatik ez seigarrenean? 32 urte ditu, eta beherantza hasia dela nabaria da, baina besteek behar **adina egin** al dute gora? Norbaitek Armstrong belaunikaraziko badu, hori Jan Ullrich da Berria - Kirola

Hitz gogorrak bota zituen Getxoko alkatearen aurka, eta horrelako atentatuak eragozteko ez duela behar **adina egiten** leporatu zion: "Getxok edozein hiritarrek bezala bakean eta babesturik bizitzeko eskubidea duten 100.000 biztanle ditu, eta alkateak ez du dena eman haien defentsan», adierazi zuen Berria - Mundua

Hain europar demokratak gu, banana errepublika deitzen zaien Ameriketako herrialde batzuek **adina egiteko** gauza ere ez gara izan: jendea desagerraraztea, bonbardaketak eta taldekako fusilamenduak egitea agindu zituzten jeneral genozida haietako gehienak, Franco buru zutela, ohean hil dira zaharrez, inoren aurrean konturik eman gabe; justizia eskatzen denean hiltzaileen umeen errugabetasuna aipatzen da, biktimen egia jakiteko eta ezagutarazteko guztion eskubidea horren kontra joango balitz bezala; eta gazte jendeak ez du bere herrian gertatu zenaren aztarrenik ere, hezkuntza egituren eta tresnen miriariak zer diren! Arazo bat daukagu, bai Berria - Euskal Herria

Gure amaren hitzetan, Natalinak gure bazkaria egiten zuenean, parrokiako pobreei ere emateko **adina egiten** zuen. Fernando Rey

"Atzo haragia parrokiako pobreei ere emateko **adina egin** zenuen!", esaten zuen. Fernando Rey

-Telefono deiak be, nahi **adina egiteko** eskatuko jotzagu, kaltien ordain. Iñaki Iñurrieta

Antolatzaileek ere, aurrekontua zuritzeko **adina eginez** gero - ordu bat nola edo hala betez gero, alegia -, pozik. Joxerra Garzia

-Bapo - zapi-berdek erantzun -; prezioa jaitsiko dut eta gastutarako **adina eginez** gero nahikoa izango dut; eta banoa orain tximinoa eta panpina-ohola datozen gurdixka mugiaraztera. Patxi Ezkiaga

Zizare batek badu borondatea eta adimena, bizitzeko gogoa, gizonak adina; ahal duen **adina egiten** dio aurre heriotzari; gizonak ere baditu borondatea eta adimena, baina beste proportzio batzuetan. Josu Zabaleta

Esaterako, txikia bada ere, ari da aldaketa garrantzitsu bat gertatzen zenbaiten ustez ezartzen diren diru ekonomiazko politiken dogmatismoan: interes tasak behar **adina egingo** dute behera. Iñaki Heras

Niretzat **adina eginez** gero, aski dut. Anjel Lertxundi

4 *adina izan*[1]

Beste izen batzuekiko paper faltsuak nahi **adina izango** dituzu. Matías Múgica

-Nire eskuetatik ez duk futbolean hi **adina den** inor pasatu, ezta pasatuko ere ziurrenik, eta bazakiat, ezer gutxi ahalegindu arren, urrutira iritsiko haizela... Bai, izar bat izango haiz, beharbada, eta jende guztia esku-igurtzika ibiliko zaik, orain bezala. Joan Mari Irigoien

Eta areago, kolpeak eurak ere behar **adina izateko**, nondinahi materia kopuru infinitua behar da. Xabier Amuriza

Ez, bada, niri erronkarik bota; zaharra izanik ere, hi odoletan uzteko **adina banauk**. Juan Kruz Igerabide

Litxarreroari horren truke emango diotena ozta-ozta xiringa berria erosteko **adina izango** da. Edorta Jimenez

Tartea, hala ere, ni bezalako gizaseme bat pasatzeko **adina zen** orain. Aingeru Epaltza

Errepublika motak sorburu izan zuten despotismoaren eta helmuga duten anarkiaren arteko mailak **adina dira**. Xabier Olarra

Aski du ikasleak irakaslea **adina izatea**, eta morroiak nagusia adina. Etxejaunari Beeltzebul esan badiote, zer ez ote esango haren etxekoei? Elizen arteko biblia

Oti horietako batek pisatzen duena **adina jan** dezake egunean, eta horretarako, ibili luzeak egiten ditu, 130 kilometro ingurukoak egunean. Berria - Gaiak

Fronebergen arabera, Espainian kontratu mugagabeak Europakoak hiru bider **adina dira**. Berria - Ekonomia

-Ezin liteke bere **adina izan** - esan zuen neskak. Mirentxu Larrañaga

Biok egur garraioan, bi gizon **adina gintunan**. Anton Garikano

5 *adina izan*[2]

Amonak bere **adina izango** du honezkero. Pako Aristi

Eta **adina baduk** hik, ene ustez, heure hogei urteotan. Txillardegi

-Zure **adina izango** zuen aurrenekoz ikusi nuenean. Unai Elorriaga

Seguruena nire **adina izanen** zuen, baina bera gazte ilehori eder fin horietakoa zen, dena giharra. Fernando Rey

Eta bi ume goseti, emaztearen bularretan zintzilik, Gerra Handia sortzen zenerako soldadutzarako **adina izango** zutenak eta guda-oinean hilko zizkiotenak. Harkaitz Cano

6 ***adinako*** *izlag* bezainbateko.

Alzheimerren gaitza duten pertsonek, beraz, umeek **adinako** zaintza behar dutela esan zuen. Ukabila **adinako** harri kozkorrak. Berria - Gaiak

Jesus jaio zen urtean norbaitek denario bat jarri izan balu banku batean, eta txanpon hori banku horretan egon izan balitz gaur arte interesak irabaziz, bere balioa lurra **adinako** urrezko bola batena izango litzateke. Bernardo Atxaga

Hotza naiz beste ustekabe askoren aurrean ere; baina lehenengo sari hark harridura **adinako** poza eragin zidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Testu hark **adinako** emoziorik ez zion lehenago beste ezein testuk sortu, ez gero sortuko ere. Joxerra Garzia

Aztikeria **adinako** bekatua da desleial izatea, sasijainkokeria bezain hutsala setakeria. Elizen arteko biblia

Horrelako ostatuetan, eguneko bi errublo ordaindurik, gela erosoa ematen diote bidaiariari; hori bai, aranpasa **adinako** labezomorroak azaltzen dira zoko-bazter guztietan. Jose Morales

Are gutxiago hizkuntzan, non edukiontziak edukiak **adinako** garrantzia duen. Berria - Kultura

Lekurik leku dabilenak estereotipoak, ideia arruntak, mendiak **adinako** topikoak aurkitzen ditu. Bernardo Atxaga

XX. mendeko euskal literaturaren eta euskal kulturaren historian ez dira asko Estepan Urkiaga Lauaxeta-ren fusilamenduak **adinako** indar sinbolikoa duten gertakariak. Berria - Harian

Arkitrabearen goiko aldeak kolomaren beheko aldeak **adinako** diametroa izango du. Santiago Iruretagoiena

Nik **adinako** ilusioa dute. Berria - Kirola

Habeak, izan ere, bata bestearen kontra geratuko balira, arnasa hartzeko eta airea pasatzen uzteko **adinako** tarterik gabe, berotu egingo lirateke, erabat hondatuz denbora laburrean. Santiago Iruretagoiena

Ingeniaria ez ezik filosofoa ere nahasteko **adinako** arazoak planteatzen ditu garunak. Irene Aldasoro

Ondo diseinaturiko makina bat da bihotza, eta helburura iristeko **adinako** presioan bidaltzen du odola arteria-sistemara (kapilarretara iristeko **adinako** presioan, alegia), baina ez hori baino handiagoan. Irene Aldasoro

Nigan, ordea, amigdalak ez du sortzen hipokanpoko artxiboak giltzaz ixteko **adinako** emoziorik. Xabier Olarra

Nahiz eta profezi dohaina izan, nahiz eta misterio guztiak eta munduko jakintza guztiak ezagutu eta mendiak lekuz aldatzeko **adinako** sinesmena izan, maitasunik ez badut, ez naiz ezer. Elizen arteko biblia

Errealitatea ez dago "hor" inolako moduz: aitzitik, behar den **adinako** prezisioz esan dezakegu errealitatea beste mundu bat dela eta zientzia, berriz, hura asmatu eta haren berri ematen duen ipuin harrigarri bat. Iñaki Segurola

Ez da uste nuen **adinako** mugimendurik izan. Berria - Kirola

Zaila da elizaren balioan edo Donatelloren eskultura eta erliebeetan arreta jartzea, erlauntza erraldoi baten **adinako** hotsa baitabil, ahopekakoak izan nahi duten jardunek eta hanka-pausoek sortua. Anjel Lertxundi

Hark maite bazaitu zuk maite duzun bezala, ez duzu parerik, ez dago zuk **adinako** zoriona duen emakumerik. Juan Kruz Igerabide

Nik filmari **adinako** arreta jartzen nion irudien eta neskaren erreakzioen arteko loturari. Anjel Lertxundi

Aurrealdean atzealdean **adinako** sendotasuna behar da. Berria - Kirola

Geroztik inoiz ez dut sentitu orduan **adinako** bakerik. Juan Kruz Igerabide

7 *adinakoxe*

Belodromoan **adinakoxe** emozioak pilatu zitzaizkidala barruan. Andoni Egaña

Hortaz, mundu horren absolututasuna, nire Niarena **adinakoxea** izan daiteke gehienez ere. Joxe Azurmendi

Hik heure buruarena **adinakoxea** . Juan Garzia

8 *ahal adina*

Pozaldian dagoenean egin beza ahalegina umiltzen eta **ahal adina** eraisten, pentsatuz zein gauza gutxirako den lehorraldi garaian, graziarik eta pozaldirik gabe gelditzean. Patxi Altuna

Aurrena dokumentazioan jarri zuen interesa, eta detektibe gisa ibili zen arkitekto elkarteko artxiboetan lortu **ahal adina** proiektu, plano, memoria eta etxearen garaiko aldizkari zahar biltzen. Sinkroniaren aitzakian, lan diakronikoetatik jakina zenari ez zaio **ahal adina** etekinik atera. Patxi Iturritegi

Aurreratu zuen ba **ahal adina** bere kokotsa eta laster ziren, urontzia hura zeriola eta andereñoa xaboibilez kokots bizarrari eraginka. Patxi Ezkiaga

Min dut, min **ahal-adina** , aurten herri honetan ezkurrik ez bildua. Patxi Ezkiaga

· Eta nik, anai Frantziskok, zuen morroi txiki-txiki honek, **ahal** dudan **adina** baiesten dizuet barrutik eta kanpotik bedeinkapen txit santu hau. Askoren artean

9 *ahal adinako* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Bi aldeek " **ahal adinako** elkarlana" egiteko erabakia hartu zutela esan zuen Suediako lehen ministroak. ETC-prentsa

Herria nekaturik zegoen, bai, gari faltaz, baina printzeak ez zeukan inolako errurik; areago, lurren antzutasuna eta itsasoaren laztasuna erremediatu nahi izan zituen, **ahal adinako** gastuz eta arretaz. ETC-literatura, saiakera

Eginahalak egin zituen askatzeko, **ahal adinako** garrasiak egiten saiatu zen, are ahoa tapatzen zion gizonari hozka egin zion, baina indarrik gabe gelditu zen, mugitu ezin zela jarri baitzuten estu lotuta. ETC-literatura, saiakera

Haren soinean irristatuz jaitsi da bigarren astunena, Xan, orkatiletako zapietatik **ahal adinako** kemenez itsatsi zaiolarik. ETC-literatura, saiakera

10 *behar adina*

Ez daukazue **behar adina** esperientzia. Bernardo Atxaga

Kanpoaldearekin komunikatzeko dituzten kanal txikiek ez dute segurtatzen **behar adina** oxigeno eta elikagai helduko zaienik difusio bidezko prozesu normalaren bidez. Irene Aldasoro

Nahiago dut gelditu nire ogibidearekin, ongi egiten dut eta **behar adina** diru irabazten dut. Fernando Rey

Tamalez, ez diagu **behar adina** kanoi, ze, halako batean, kanoiek erabaki lezakete batailak noren aldera egin. Edorta Jimenez

Baina haiek, **behar adina** elikagai ez zutela eta, ezezko borobila eman zioten. Berria - Euskal Herria

Eta zer esan ardoaz, ez baitzuen **behar adina** ur ere hartzen, egarriak itotzen bazegoen ere? Askoren artean

Ile-zangoak uzten zituzten, baina nik ez neukan artean **behar adina** bizar, nireak luzatzen uzteko. Juan Kruz Igerabide

Will Morrowen istorioetako bat daukat patrikan, eta ez naiz ausartzen **behar adina** argi dagoen lekura irakurtzera joatera. Xabier Olarra

Gezur bat, edozein delarik ere, egia bihurtzen da **behar adina** aldiz errepikatuz gero. Joxerra Garzia

Ez dugu sekula **behar adina** bider esango bi gauza direla, oso bana gainera, ez sinestea eta ez dela esatea. Iñaki Segurola

Hartarako **behar adina** indarrekin sentitzen baitzen. minduta dago Dusseli egiten dizkion maite-jolasei hark **behar adina** jaramon egiten ez dielako. Joan Mari Irigoien

Ahalegindu nintzen, baina ezin izan nuen **behar adina** adore bildu hura kontatzeko. Mirentxu Larrañaga

Jendea badoa herriz herri ur bila, baina ez du **behar adina** aurkitzen. Elizen arteko biblia

Saia zaitez **behar adina** jaten. Jose Morales

Ez naiz **behar adina** dibertitzen! Fernando Rey

Iruditu zitzaidan **behar adina** itxaroten banuen nire eskuz isuritako odolak berak itoko ninduela. Matías Múgica

Aski damutua nago aukera bat baino gehiago alferrik galdu baitut **behar adina** ez saiatzeagatik. Karlos Zabala

Beharbada ez zen Mariaz **behar adina** xarmatua. Aingeru Epaltza

Nik ere hortxe lo egiten dut, eta fabore handia egingo didazu, ezin **behar adina** eskertzekoa, dirua onartzen badidazu. Matías Mujika

Ez gaude gu ohituak, edo ez, bederen, **behar adina** , ebaluazioa eta neurketa sartzera unibertsitatean, eta hori beharrezkoa da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Konstelazioez mintzatu ginen, doi-doi **behar adina** , harik eta jabetu ginen arte biotatik nork zekien besteak baino are gutxiago. ez baikenekien noski zer gerta daitekeen gatz leherkor hori **behar adinako** artarik gabe berotuz gero. Joxe Austin Arrieta

Quorum [...]: Talde erabakitzaile bateko **behar adinako** kide kopurua, beren modura aritzeko eta erabakiak hartzeko modukoa. Xabier Olarra

Ez zuen **behar adinako** abiaduraz lasterka egin eta asaltoko tropek begia gainean jarri zioten. Ramon Etxezarreta

Sekula ez zaio **behar adinako** famarik emango holako zaldunari. Patxi Ezkiaga

11 *gura adina*

Ez dugu guk **gura adinako** puntu kopurua eskuratu, eta ondorioz Europako postuetatik kanpo gaude; gure helburutik kanpo, alegia. Berria - Kirola

"Defentsan huts egin dugu zenbait jokalditan, eta aurrean ez dugu **gura adina** asmatu», adierazi zuen Valverdek. Berria - Kirola

Sueteko lanak dezente hobetu ziren, nahiz eta egoerak **gura adina** afari eta ekitaldi prestatzea galarazi. Urtzi Urrutikoeetxea

12 *nahi adina*

Ez duzu diru handirik irabaziko, baina **nahi adina** liburu izango duzu irakurtzeko. Bernardo Atxaga

Jan gura izanez gero, **nahi adina** haragi jan ahal izango duzue. Elizen arteko biblia

Hitzak m-z hasita-masita, **nahi adina** esaldi-mesaldi borobil-barrabil ditzake. Iñaki Arranz

Alzheimerren gaitzaren aurkako tratamendu farmakologikoak gero eta aurreratuago daude, baina ez **nahi** i **adina** . so gogo onez egingo zuela agintzen zitzaiona, erantzun zuen gatibuak; eta beldur zela, bere kondairak, berak **nahi adinako** atseginik emango ez ote zien. Berria - Harian

Inoiz besotan estutu ez izana dut pena bakarra, baina honezkero ez du merezi horretaz arranguratzea, irudimenezko mundu batean bizitzen ohitu naizelako batetik, eta, bestetik, nahita ere nire besarkada ez litzatekeelako nik **nahi adinakoa** , zuk merezi bezalakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

13 *nahi adinako* *izlag*

Bileran ura oinarrizko eskubide gisa aldarrikatzeko presioa egiten saiatu dira, baina ez dute **nahi adinako** indarra izan. Berria - Gaiak

Zihigatik 649 kilometrora dagoen espetxean, furgonak garestiak dira eta ez daukate **nahi adinako** presupostua... Koldo Izagirre

Egoera batetik besterako aldaketa era askotara egin dezakegu, eta nahi adina biribil hertsi gehi ditzakegu, **nahi adinako** luzerakoak. Itziar Laka

Nahita ere nire besarkada ez litzatekeelako nik **nahi adinakoa** , zuk merezi bezalakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

adina adibide (5); **adina adore** (9); **adina alde** (9); **adina aldiz** (12); **adina atzeratzea** (5); **adina aukera** (6); **adina bai** (14); **adina baino** (6); **adina baliabide** (12); **adina balio** (27); **adina balio du** (6); **adina balio zuen** (5); **adina behar** (5); **adina bete** (9); **adina boto** (8); **adina da** (17); **adina dela** (8); **adina denbora** (37); **adina diru** (57); **adina dirurik** (5); **adina du** (7); **adina edo** (9); **adina edo gehiago** (6); **adina egiten** (9); **adina elikagai** (5); **adina eman** (6); **adina ematen** (6); **adina ere** (23); **adina ere ez** (6); **adina esan** (10); **adina esan nahi** (7); **adina eta** (33); **adina ez** (34); **adina ezagutzen** (7); **adina garrantzia** (5); **adina gauza** (5); **adina gol** (5); **adina hor** (5); **adina indar** (24); **adina indar izan** (6); **adina informazio** (11); **adina izan** (9); **adina izango** (17); **adina jan** (6); **adina janari** (7); **adina jaten** (6); **adina kontuan** (13); **adina kontuan**

hartuta (6); **adina lan** (8); **adina leku** (9); **adina luza** (7); **adina maila** (7); **adina maite** (5); **adina meritu** (8); **adina meritu egin** (7); **adina min** (5); **adina ogi** (6); **adina ordu** (6); **adina oxigeno** (7); **adina puntu** (15); **adina ur** (10); **adina urte** (6); **adina zen** (9); **ahal adina** (6); **asetzeko adina** (18); **aurre egiteko adina** (6); **bat adina** (6); **bat erosteko adina** (6); **bataz besteko adina** (5); **batek adina** (15); **batez besteko adina** (36); **behar adina** (247); **behar adina aldiz** (6); **behar adina baliabide** (5); **behar adina denbora** (8); **behar adina diru** (14); **behar adina egiten** (5); **behar adina ez** (10); **behar adina indar** (5); **berak adina** (6); **berak nahi adina** (5); **bere adina** (21); **besteko adina** (42); **betetzeko adina** (13); **bizitzeko adina** (13); **da behar adina** (8); **den adina** (13); **du behar adina** (6); **duen adina** (9); **duten adina** (8); **egiteko adina** (41); **egiteko behar adina** (6); **egunak adina** (5); **emateko adina** (9); **erosteko adina** (18); **erosteko adina diru** (6); **erretiratzeko adina** (8); **erretiro adina** (9); **estaltzeko adina** (5); **eta adina** (11); **eta behar adina** (8); **eta nahi adina** (15); **ez behar adina** (7); **guk adina** (6); **gure adina** (6); **gutxieneko adina** (5); **guztiek adina** (6); **haren adina** (8); **hark adina** (7); **hartzeko adina** (10); **hasteko adina** (5); **hau adina** (9); **hau adina esan** (6); **hirugarren adina** (5); **honek adina** (5); **horretarako adina** (12); **iaz adina** (6); **ibiltzeko adina** (7); **idazteko adina** (5); **ikusteko adina** (8); **irabazteko adina** (6); **iristeko adina** (6); **izateko adina** (16); **jarraitzeko adina** (5); **jartzeko adina** (8); **joateko adina** (10); **lehen adina** (8); **lortzeko adina** (7); **nahi adina** (243); **nahi adina adibide** (5); **nahi adina denbora** (11); **nahi adina diru** (6); **nahi adina izango** (5); **nahi adina luza** (7); **nik adina** (13); **nire adina** (19); **ordaintzeko adina** (7); **osatzeko adina** (10); **sortzeko adina** (6); **zuen adina** (11); **zure adina** (5); **zuten adina** (5)

adinako arreta (7); **adinako garrantzia** (10); **adinako indarra** (7); **adinako indarrik** (5); **adinako tartea** (5); **adinakoa da** (6); **adinakoa izan** (13); **adinakoa izango** (7); **adinakoa zen** (6); **adinakorik ez** (7); **batek adinako** (6); **behar adinako** (82); **behar adinakoa** (13); **du behar adinako** (5); **egiteko adinako** (5); **haiek adinakoa** (5); **nahi adinako** (9); **zu adinakorik** (7)

---

adinakoxe ik **adina 7**.

---

adinaldi *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* adin tartea.

Horren arrazoietako bat da, batez ere, **adinaldi** horretan ematen direla, bai jarrera finkatzea, baita jarrera aldatzea ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

adinatsu gutxi gorabehera adina.

Modernitatearen tradiziorik ez dugula, esatea **adinatsu** da hori: Petrarcak poesian, Descartesek filosofian, Luterok erlijioan, hots, kultura modernoaren hastapeneko Ernazimentu diferenteek, izate ororen azken oinarri eta ekintza ororen iturri gisa finkatu duten Ni zoli menpegabe horren tradiziorik. Joxe Azurmendi

Indibiduo-komunitate zerikusia batez ere, oposizio eta elkarren uko bezala hartzen da (140-142); nazio diferenteen aitortzari, gerraren onespena eta gizadiaren ukoa **adinatsu** esanarazi gura zaio (29). Joxe Azurmendi

---

adinatxo *adkor* adina.

Orain ez gara arduratuko independentziaz, ezpada izpiritu edo herri gogoaz -hori ere Unamuno-ren aro hau oroitarazteko **adinatxo** , besterik gabe, testua orokorki ezagun samarra baita bestela (eta Unamuno-ren pentsamenduaren historian momentu labur bat baizik ez). Joxe Azurmendi

---

adinaxe gutxi gorabehera adina.

Barre eragiten zioten Diogenesen kargu-hartzeek, azturak eraberritzeko haren usteek **adinaxe** . Juan Garzia

Jo batera eta jo bestera, baina haruzkoan **adinaxe** honuzkoan beti..., harik-eta ohartu arte ez dela gezurra betidanik oharkabean jakin duzuna. Iñaki Segurola

Jeneralen arima estimu handitan baitzuen, jende xehe arruntarena baino bi edo hiru aldiz estimatuagoa noski, Aitasantuarena **adinaxe** , eta, ahotsa apaltzen zuten hitz horiek esaterakoan, zurrumurruan ahoskatzen zuten deabru hitza. Felipe Juaristi

Urte askoan ikasia zuen argazki trukatuak benetakoak **adinaxeko** froga zanpagarriak zirela; ez zituen jada bereizten besteetatik. Matías Múgica

---

adinbako *izlag* adingabekoa.

Adinbako jainko. Edorta Jimenez

---

adinbat **1** adina. ik **bezainbat**.

Dioniso ere pozik geratu zen, liluraturik, emazte zenaren irudizko aurpegitik harena izan zitekeen ahotsa izango zuelako gogoan, nahi **adinbat** aldiz. Felipe Juaristi

Egurra su izateko ezerk ez du hain ongi prestatzen, surtara bertara hurbiltzeak **adinbat** , eta suak egurra gero eta gehiago hartzeak **adinbat** . Joan Mari Lekuona

Esaterako, litekeena da mahai baten inguruan egungo ekonomia arazo bati buruzko hausnarketa egiteko ekonomilari talde bat osatuko balitz, esaerak dioen bezala, buru **adinbat** aburu izatea. Iñaki Heras

Hau da, ez garela geu ere pentsatzeko era jator horri behar **adinbat** atxikiak. Iñaki Segurola

2 ***adinbateko***

Batetik bestera aho-mihietatik mapetara edo goiko kaletik Foruen Ibilbidera **adinbateko** alde, jauzi edo koska dago. Iñaki Segurola

---

adinberde *iz adkor* gaztaroa.

Neguan nagoen arren eta **adinberdea** joan zitzaidan arren, zeren adinzahar bainaiz, ene hitza ez da biluzia, baina hostoz josia, gorputzaren negua hitzaren udaberriaz jantzi eta estali nahi banu bezala, eta neguaren gorputza udaberriaren hitzaz. Joan Mari Irigoien

---

adindu, adin(du), adintzen **1** adinean sartu.

Olinpiar begi baten itxi-irekian ziztu bizian iragan zen eztei-bidaiaren ondoren, Erosek eta orain hilezkor baina ezinbestean **adintzen** ari zen lagunak elkarrekin deitoratu behar izan zuten beti-betiko Titonen zorigaitzeko egoera larria. Iñaki Mendiguren

2 (era burutua izenondo gisa)

Funtzionarioa zen Luis, eta pertsona **adindua** . Lander Garro

Gizon **adindu** eta kurkuilatu hori. Felix, gizon **adindua** , aldian behin joerak eman eta elizara erdi-biluzik joaten dena. Taxien geltokian bikote **adindu** bat eta gizonezko bat bere maletarekin. Itxaro Borda

Barrura sartu eta, dirua aldatzeko aitzakian harrera-gunera nindoala, senar-emazte **adindu** batzuk ikusi nituen zilar kolorez jantzitako neskato elbarri bati beso banatatik heltzen ziotela. Bernardo Atxaga

Bulegoko gizaseme **adinduek** agian esan ahal izango ziotela pentsatu zuen. Anton Garikano

Bidaiaz joan nahi duzu? -galdatu zion andere **adinduak** . Itxaro Borda

Ebanjelio denboran beren buruaz beste ziren herritar **adinduen** zerrenda osatu zuen. Itxaro Borda

Zaharra izan gabe **adindua** diruditen horietakoa zen. Ramon Saizarbitoria

Gixon burusoil bat, ni baino **adinduagoa** , molde zaharreko bizartegi bateko enplegatuaren itxura zuena. Aingeru Epaltza

Hiru gizonezkoen artean **adinduena** zirudienak, guztien izenean mintzatuz, erran zion berak ere atsekabeturik zeudela, ez zutela nehoiz ahantziko. Josetxo Azkona

Adinduenek, aitzin-erretretaz gozatuz, erretreta berrogeita hamahiru urtetan har zezaketen. Itxaro Borda

3 (izen gisa) adinean sarturiko pertsona.

ELA, LAB, ESK, CCOO eta UGT sindikatuek **adinduak** artatzeko zerbitzuak murriztu dituela leporatu diote Gipuzkoako Foru Aldundiari. Berria - Euskal Herria

Hainbat etxebizitzatako behealdeak desjabetu nahi zituzten, bertan **adindu** eta ezinduentzat igogailuak jarri ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Adinduak bakarrik bizi direla pentsatzen dugu maiz, baina hona hemen datu objektiboak: edadetuen %19 bakarrik bizi dira, eta %27 beren bikotekidearekin. Berria - Euskal Herria

Adinduek eskarmentu handiko pertsonak izanda ere, noizbehinka "haurrak bezala" aritzen direla dio zinemagileak, eta kontraste hori da zinemagileak erakutsi nahi duena. **Adinduei**, haurrei, gaixo kronikoei eta baztertuta bizi direnei eragiten die batez ere beroaldiak. Berria - Kultura

Zentroak lau zerbitzu eskaintzen ditu: **adinduentzako** jangela, eguneko zerbitzua, egoitza eta erretiratuen etxea. Berria - Euskal Herria

Gazteenak gainean zeuden, helduak erdikoetan eta zolakoetan **adindu** kurkuilatuak, bata bestearen kontra trinko. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adindu bat (4); **adindu eta** (3); **adinduak eta** (3); **andre adinduak** (4); **emakume adindu** (3); **emazte adindua** (3)

---

adindun *izond/iz* adinean sartua dena.

Halako batean, emakume **adindun** baten silueta islatu zen beiran. Aritz Gorrotxategi

Denborak, itzulbideko atzerapen eta deskuidoek arroztu dute gudari **adinduna**. Karlos Linazasoro

Une hartan, kez kutsaturiko gelaxka itogarri hartan, xake-partidek, nire ohiko aurkari **adindunek** eta Maximilian plazak berak ere beste planeta batean balira bezain urrun ziruditen. Alberto Ladron Arana

Adindunak diren seme-alaba ezinduengatik, 3.012 euro bideratuko emango dituzte ezintasuna %65ekoa bada, eta 4.518 euro ezintasuna %75ekoa izanez gero. Berria - Euskal Herria

Jeanne Chuhurrak suerte hobea izan du osagarriaren aldetik, 94 urtetan bururatu duelarik **Adindunen** Egoitzan bere bizia, eta hau ere berdin maitatua izana. Herria

Donostiako Udalaren asmoa, beraz, **adindunen** autonomia bultzatzea da. Berria - Harian

Nahiz osagarriz mendratua zen, ibilki zen oraino eta azkenik igandean, herriko **adindunekin** bazkaldua zen Eiharalarren. Herria

---

adineko *(orobat **adinetako** g.er.)* **1** *izlag* adin handikoa, adinean sartua. ik **adintsu**.

Gehienak **adineko** pertsonak izan dira, 65 urtetik gorako gizo-emakumeak. Berria - Euskal Herria

Erniora iritsi eta guk ere geure zintak erosi genituenean, **adineko** bi andre ikusi genituen gailurreko gurutze baten ondoan kuzkurtuta kandela bat pizten. Bernardo Atxaga

Adineko pertsona zela, 1992an, palestinar kristau batekin ezkondu zen Arafat, Suha Tauilekin. Berria - Mundua

Adineko emakume bat jagoten egiten du lan. Berria - Harian

Bolantean, **adineko** gizon bat, ilunez bezti, ttattarrarekin eta kapela buruan. Daniel Landart

Hain baita hauen izaera, **adineko** gizon baten ustez, berearen ezberdina, non ez bailezake sinets bera ere behin haur izan zela. Piarres Xarriton

Adineko gizona zen okin hura, eta mantal bitxi bat zeraman, gauza astun bat, besoen azpitik igaro eta bizkarra inguratzen zioten zintak zituena. Koro Navarro

Adineko pertsona asko zaindu zituela esan zuen Nemiak, baina Santos izan zela espezialena. Unai Elorriaga

Egia da hantxe ikusi nuela eserita, Züricheko Café Odéon-en, **adineko** jaun bat, Hanna sarri samar bila joaten zitzaiona, tranbiaraino laguntzearren. Joxe Austin Arrieta

Albo batera makurtua zeukan burua, nabarmen erakutsiz, ahots-hariak tinko, **adineko** jendearen eztarri mehar-ximurtua. Jon Muñoz

Kenkari handiagoak ezarriko dizkiete ezinduei, **adineko** herritarrei, etxebizitza erosi edota haurra adoptatu dutenei, seme-alabadun familiei eta bikoteei. Berria - Ekonomia

Adineko jendeak oso pentsamolde atzeratua izaten du batzuetan; ezin dut horrelako jendearen iritzietara makurtu. Josu Zabaleta

Adineko zenbait ikusi ditut medaila papoan. Piarres Aintziart

Zortzi pertsona izan ziren, **adineko** bost pertsona eta hiru gazte. Josu Zabaleta

Mugikortasun gutxiko **adineko** pertsonen kopurua ere goraka doa. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo gisa)

Bikote **adineko** bat zegoen, senar-emazte itxurakoak, jangelaren beste aldeko mahaian eserita. Inazio Mujika Iraola

Gazte batek emakume **adineko** bat zeraman besoetan; emaztea eta semeak atzetik zihoazen, fardelak eskuetan. Felipe Juaristi

Bidearen beste espaloira joan zen eta emakume **adineko** bat geldiarazi zuen oihuka. Anjel Lertxundi

Biak lekuz kanpo dirudite: bi gizon **adineko**, bata besteagandik hain urrun, areto eskerga hartan. Xabier Olarra

Alepo hirian Aragoiko bandera zeraman itsasontzi batean lapurretan aritutako gizon **adineko** bizargorri bat aurkitu zuen, Nafarra ezizenez ezagunagoa. Felipe Juaristi

Zutik geldi zegoela, sedazko euritako handi baten gainean bermaturik, bere gorputz sekulakoari zabu eragiten zion gizon leun **adineko** bat zen. Irene Aldasoro

3 (izen gisa)

Adineko bati janari sendo eta bortitza baliagarriagoa zaio. Joan Mari Lekuona

Adineko bati janari sendo eta bortitza baliagarriagoa zaio. "Ez iezaiozu hainbeste begiratu, gizona, konturatu egingo da eta", ziotson emazteak, basoa bete sagardo iresnten ari zen senarrari... "Ez nikek hire larruan egon nahi", **adineko** batek, errukiz bezala begiratuz. Joan Mari Lekuona

Erdialdean, berriz, lauzpabost **adineko**, aretoaren zabalean barreiatuak. Bost **adineko** hil ziren sutean eta zentroko langile bat erietxera eraman zuten, arnasa hartzeko arazoak zituelako. Pedro Alberdi

Adineko asko tratu txarrak salatzeko beldur dela uste dute. Berria - Euskal Herria

Gizarteak ezin izango lituzke mantendu hainbeste **adineko**. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adineko andre (4); **adineko bat** (10); **adineko batek** (5); **adineko bati** (4); **adineko behorrak** (3); **adineko beste** (3); **adineko bi** (6); **adineko emakume** (16); **adineko emakume bat** (10); **adineko emakume batek** (3); **adineko emazte** (3); **adineko eta** (14); **adineko eta gazte** (3); **adineko gazte** (3); **adineko gizon** (33); **adineko gizon bat** (10); **adineko gizon batek** (6); **adineko gizon baten** (3); **adineko gizonak** (3); **adineko guzieri** (3); **adineko jaun** (3); **adineko jende** (15); **adineko jende asko** (5); **adineko jendea** (11); **adineko jendeak** (17); **adineko jendearekin** (5); **adineko jendearen** (7); **adineko jendeek** (3); **adineko jendeen** (4); **adineko jendeeri** (7); **adineko jenden** (3); **adineko mutiko** (7); **adineko mutil** (6); **adineko mutil bat** (3); **adineko neska** (6); **adineko pertsona** (12); **adineko pertsonak** (9); **adineko pertsonek** (4); **adineko pertsonen** (4); **adineko pertsonentzat** (5); **ala adineko** (3); **baina adineko** (4); **baino adineko** (3); **bere adineko** (41); **bere adineko gizon** (4); **bere adineko jendearekin** (3); **beren adineko** (3); **bizi den adineko** (3); **den adineko** (3); **dira adineko** (3); **diren adineko** (4); **duten adineko** (4); **edo adineko** (3); **emakume adineko** (5); **emakume adineko bat** (4); **ene adineko** (8); **ere adineko** (3); **eta adineko** (29); **eta nire adineko** (4); **gazte ala adineko** (3); **gazte eta adineko** (13); **gizon adineko** (5); **gure adineko** (13); **haren adineko** (3); **haurrak eta adineko** (3); **herriko adineko** (3); **hirugarren adineko** (13); **jende adineko** (4); **neure adineko** (3); **nire adineko** (32); **nire adineko neska** (4); **tarteko adineko** (5); **zen adineko** (3); **zion adineko** (3); **zituen adineko** (3); **zuen adineko** (4); **zure adineko** (10)

adinekoa da (3); **adinekoa edo** (4); **adinekoa eta** (4); **adinekoa izango** (3); **adinekoa izango zen** (3); **adinekoa zen** (5); **adinekoak dira** (5); **adinekoak ere** (3); **adinekoak eta** (12); **adinekoak eta junior** (4); **adinekoak ez** (3); **adinekoak ziren** (10); **adinekoei egindako** (3); **adinekoei egindako tratu** (3); **adinekoek ez** (3); **adinekoen artean** (5); **adinekoen bazkaria** (5); **adinekoen elkarte** (17); **adinekoen elkarte hunek** (16); **adinekoen elkarteak** (9); **adinekoen eta** (5); **adinekoen finala** (5); **adinekoen nazioarteko** (3); **adinekoetarik ttipienetaraino** (3); **adinekotarik ttipienetaraino** (4); **aitaren adinekoa** (3); **bere adinekoa** (3); **bere adinekoek** (4); **bere adinekoen** (4); **beti gazte adinekoen** (14); **dira adinekoak** (3); **edo adinekoak** (5); **emakume adinekoek** (3); **eta adinekoak** (10); **eta adinekoei** (4); **eta adinekoen** (6); **gazte adinekoen** (16); **gazte adinekoen elkarte** (16); **gehienak adinekoak** (3); **goxoki adinekoen** (3); **goxoki adinekoen elkarteak** (3); **haurrak eta adinekoak** (3); **hirugarren adinekoak** (13); **hirugarren adinekoek** (6); **hirugarren adinekoekin** (6); **hirugarren adinekoen** (23); **hirugarren adinekoen elkarteak** (4); **hirugarren adinekoeri** (3); **jende adinekoek** (3); **jende adinekoen** (4); **nire adinekoa** (10); **nire adinekoa edo** (3); **nire adinekoak** (3); **ziren adinekoak** (3); **zure adinekoa** (3)

adineratu, adinera(tu), adineratzen *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* da *ad* helduarora iritsi; zahartzarora iritsi.

Ines Arretxe **adineratzen** denean, esposatzen da Santiago Ferran izenekoarekin, eta familiako zerbait istoriorengatik, gelditzen zaio Marimaite izena etxeari. ETC-literatura, saiakera

Aita amak **adineratu** eta, 1960an, Pierre, zaharrenaren gain utzi zuten baserri etxaldea. ETC-literatura, saiakera

---

adinetako ik **adinetako**.

---

adinetaratu, adinetara(tu), adinetaratzen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* da *ad* helduarora iritsi.

Ez haiz **adinetaratua** oraino? ETC-literatura, saiakera

---

adingabe **1** *iz* adin nagusitasunera heldu ez den pertsona.

14 urtetik 18ra artekoak oraindik **adingabeak** dira, eta lautik hiru asteburuetan alkohola edaten ari dira. Berria - Euskal Herria

Giza laguntzarako erakundearen ustez, 1.358 **adingabe** daude LTTEren menpe. Berria - Mundua

Legea urratzen duena **adingabea** bada, isuna gurasoek, tutoreek edo legez gaztearen ardura dutenek ordaindu beharko dute. Berria - Euskal Herria

Orotara 90 palestinar hil eta beste 300 zauritu dira iragan irailaren 29an operazioa abiatu zenetik, tartean 26 **adingabe**. Berria - Mundua

Bigarren Intifada hasi zenetik 651 **adingabe** hil dituzte Palestinan. Berria - Mundua

Pederastiagatik dira lau salaketa, **adingabe** bat mozkortzeagatik beste lau eta pederastia saiatzeagatik eta **adingabe** bat bahitzen saiatzegatik beste bana. Berria - Kultura

Asia hegoaldeko herrietako ehundegietan, esaterako, **adingabe** askok gehienak neskak egunean 14-18 orduz egiten dute lan. Berria - Gaiak

Adingabea babestu beharreko objektua izatetik eskubideen subjektua izatera igaro da. Berria - Euskal Herria

Baionako emazte bat preso sartu dute gizona eta alaba, **adingabea**, jotzeagatik. Berria - Euskal Herria

Bizkaian atxilotuetatik bi **adingabeak** dira. Berria - Euskal Herria

Atxilotuetako 3 **adingabeak** dira, besteak, berriz, nagusiak. Berria - Euskal Herria

Adingabearen lege-egitasmoaren zirriborroek zenbaitzuren desadostasuna eragin zuten. Berria - Euskal Herria

Israelgo Armadak hamar palestinar hil ditu Gazan, horietako bi **adingabeak**. Berria - Mundua

Atxilotu zituztenen artean **adingabeak** eta emakume haurdunak zeuden. Berria - Mundua

Adingabeak babesteko bitarteko bat da adopzioa. Berria - Harian

Ekuadorren milioi bat **adingabe** inguruk lan egiten duela salatu du Familia eta Haurraren Institutu Nazionaleko arduradunak. Berria - Gaiak

Prozedura Zibilaren Legeak agintzen du **adingabe** gaixoak haien adinera egokitzen diren zentroetan itxi behar dituztela. Berria - Harian

Duela bi urte, Basoran **adingabe** irakiar batzuei emandako jipoia ikusten da irudietan. Berria - Mundua

Adingabeak bortxatzea leporatu diote Baionako prokuradoreordeari. Berria - Euskal Herria

1995ean eta 1996an hainbat neska **adingabe** bahitu eta bortxatu zituela. Hego Amerikako datuak kontuan harturik, herrialde horretan dago langile **adingabe** gehien. Berria - Gaiak

Ama **adingabe** gehien dituzten 50 herrialdeak identifikatu dituzte. Berria - Gaiak

Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak aztertuko du legezkoa den inor exekutatzea **adingabea** zenean hilketaren bat egiteagatik. Berria - Mundua

Era horretan, **adingabeen** esplotazioa desagerrarazi ahal izango da, baina **adingabeek** lanean jarraitu ahal izango dute. Berria - Gaiak

Aldundiak ezin du ezer ere egin **Adingabeen** fiskalaren agindurik ez badu. Berria - Euskal Herria

Parlamentuak UPNren eta CDNren bozekin onartu du **Adingabeen** Legea. Berria - Harian

Adingabeen erantzukizun penalari buruzko legeak. Berria - Harian

2005ean 282 auzi jaso zituen Iruñeko **Adingabeen** Epaitegiak, eta haietako 265 erabakita utzi zituen. Berria - Euskal Herria

Madrilgo **Adingabeen** Babeslea. Berria - Euskal Herria

Adingabeen zentroak helduen espetxeak baino okerragoak dira. Berria - Harian

Jazarpen sexuala, bortxaketa, **adingabeen** abusua eta beste hainbat basakeria libre izango lirateke. Luis Elberdin

Kasu horretan **adingabeentzako** zentro batean sartuko luteke. Berria - Mundua

2 (izenondo gisa)

Pundu bat zuen bereziki aipatzekoa frantses gobernu gizonekin: Errumaniatik Frantziarat gordeka ihes egina duten haur eta gazte **adingabeak**. Herria

3 ***adingabeen auzitegi*** *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi)*

Erretiratzeko adina, orokorrean, 70 urte da (Lord Chancellor-aren onespenarekin 72), 65 **adingabeen auzitegietan** aritzen direnentzako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hain zuzen, Botere Judizialaren Lege Organikoa onetsi ondoren - LOBJ - (1985) **Adingabeen Auzitegi** Babesleak desagertu ziren eta, horren ordez, organo jurisdikziodun berriak sortu, Adingabeen Epaitegiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tratu txarrak jasan ditzakeen haurrengana bereziki zuzenduta egonda ere, **Adingabeen Auzitegitik** pasatu diren gazteak ere aintzat hartzen ditu. ETC-prentsa

Hala ere, Donostiako **Adingabeen Auzitegiak** zigor hori bertan behera laga zuen. ETC-prentsa

Donostiako **Adingabeen Auzitegiko** epaileak auzian izan duen jarrera defendatu du elkarrizketa batean. ETC-prentsa

Azterketa egin zioten **Adingabeen Auzitegiko** fiskalak eskatuta, eta gazteari adina 14 urtera aldatu zioten, azterketan oinarrituta. ETC-prentsa

Hamar urteko zigorra jarri zion **adingabeen auzitegiak**, eta helegitea jarri zuen haren abokatu Joanes Labaienek. ETC-prentsa

Auzi saioa zuten atzo Gipuzkoako **Adingabeen Auzitegian**, auziko aldeen ikuspegia azaltzeko. ETC-prentsa

Berezko araudia izateaz gain, **Adingabeen Auzitegia** dago Espainiko Estatuan eta horrek, zigor prozeduraren ikuspuntutik, ezberdintasunak ditu. ETC-entziklopedia

Nerabe bati etxean gizon helduak hartzea leporatuko dio bizilagun batek. **Adingabeen auzitegira** eramango dute, eta han epaile atsegin eta ulerkorra aurkituko du buruan. ETC-entziklopedia

4 ***Adingabeen Babes Auzitegi*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Haurren etorkizuna **Adingabeen Babes Auzitegiak** erabaki beharko duela esan zuen alkateak. ETC-prentsa

5 ***adingabeen epaitegi***

Segiko kide bat epaitu du Baionako **adingabeen epaitegiak**. Berria - Euskal Herria

F. gazteek gutuna bidali zioten Auzitegi Nazionaleko **Adingabeen Epaitegi** Zentraleko epaileari joan den abuztuaren 21ean, aipatutako arropak askatasunez janztea ahalbidetzeko "beharrezkoa dena» egin zezan eskatzeko. Berria - Euskal Herria

6 ***adingabeen zentro***

Adingabeen zentro batean sartu dituzte Santurtzira itsasontzi batean iritsitako bi gazteak. Berria - Euskal Herria

Hala, hilketa, bortxaketa edo ekintza "terroristen» kasuetan, eta egilea 14 eta 16 urte artekoa bada, epaileak urtebete eta bost urte artean sar dezake **adingabeen zentro** itxi batean (orain gehienezko zigorra lau urtekoa da). Berria - Euskal Herria

Adingabeen zentroak erregulatzeko eskatu diote Jaurlaritzari. Berria - Euskal Herria

"**Adingabeen zentroak** helduen espetxeak baino okerragoak dira». Berria - Harian

7 ***adingabekoen epaitegi*** *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Eskumen berezia duten auzitegien kasuan (Entzutegi Nazionala edo **Adingabekoen Epaitegiak**, esaterako), auzitegi jakin batek gatazka multzo jakin bat ebazteaz arduratuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala ere, Azkarragak ziurtatu zuenez, "EAEko **Adingabekoen Epaitegi** baten aginduz horrelako zentro batean sartu behar zen adingabe bat bera ere ez da hemendik kanpo joan". ETC-prentsa

Abokatuak esan zuen, epaileak hala behar dela erabakitzen badu, Iruñeko **Adingabekoen epaitegian** deklaratuko duela. ETC-prentsa

Beraz, ustez semeak egin zuen zerbaitegatik semea bera eta haren gurasoak zigortu zituen Espainiako Auzitegi Nazionaleko **Adingabekoen Epaitegiak**. ETC-prentsa

Kale erasoekin edo "terrorismo delituekin" zerikusia dutenak, gainera, Espainiako Auzitegi Nazionalaren menpe dagoen **Adingabekoen Epaitegiak** bideratzen ditu. ETC-prentsa

2005-10-05: Zigortutako gazteen defentsak Zeberioren familiak **Adingabekoen Epaitegiaren** erabakiaren kontra jarritako helegitearen aurka egin zuten. ETC-prentsa

Ondorioz, norbaitek epaitzekotan, **adingabekoen epaitegi** batek epaitu behar lukeela argitu zuen. ETC-prentsa

Iurretako (Bizkaia) sei adingabe Durangoko auzitegian izan ziren atzo, urrian Bilboko **adingabekoen epaitegira** deklaratzera deitu baititzute. ETC-prentsa

Era berean, Fernandezek esan zuen azken urte judiziala ez zela "erraza" izan, eta **adingabekoen epaitegietarako** baliabide gehiago eskatu zituen. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adingabe atxilotu** (3); **adingabe bat** (22); **adingabe bat atxilotu** (8); **adingabe bati** (20); **adingabe bati sexu** (5); **adingabe bati tiro** (3); **adingabe gehien** (4); **adingabe hil** (5); **adingabe inguru** (3); **adingabe inputatu** (3); **adingabe inputatu dituzte** (3); **adingabe irakiar** (3); **bat adingabe** (6); **bi adingabe** (3); **eta adingabe** (4); **eta adingabe bat** (3); **hiru adingabe** (5); **lau adingabe** (3); **milioi bat adingabe** (4); **neska adingabe** (4)

---

adingabeko *izlag/iz* adingabea.

Bere burua gobernatzeko gauza ez diren **adingabeko**, gaixo eta zaharrak artatzea. Edorta Agirre

Iaz, bi **adingabeko** exekutatu zituzten, bat Ameriketako Estatu Batuetan eta bestea Txinan. Berria - Gaiak

Adingabekoak ginen bitartean, munduan agintzen duten indarren menpe geunden. Elizen arteko biblia

Ulularіak esan zuen ez neukala sartzerik, "goiko aginduak" zirela, eta epaiketetan ez zutela **adingabekoek** egoterik. Koldo Izagirre

Erabaki nuen **adingabekoek** ez entzutekoak entzun beharko zituztela areto nardagarri hartan. Koldo Izagirre

Beste bost gazteek hemezortzi urtez beherakoak guztiak **adingabekoen** epailearen aurrean deklaratu beharko dute datozen egunotan. Berria - Mundua

Adingabekoekin ezkontzea legezkoa ez den arren, Indiako andreen erdiak 15 urte bete aurretik ezkontzen dira, **Adingabekoen** poliziak ez du atsedenik ikerketetan; egunero desagertzen dira hamabost, hamasei, hamazazpi urteko neskak edo zaharragoak. Berria - Gaiak

Argazkilariaren web orrian **adingabeko** nesken irudi pornografikoak aurkitu dituzte. Berria - Gaiak

Aldundiarekin hitzartutakoaren arabera, Landalan elkarteko teknikarien betekizuna izango da foru erakundeen ardurapean diren **adingabeko** atzerritarrei jarraipena egitea. Berria - Euskal Herria

Kurdistango alderdi politiko batek salatu duenez, Siriako agintariek gutxienez 35 **adingabeko** kurdu elektrizitatearen bidez torturatu zituen. Berria - Mundua

Familiarik gabeko **adingabeko** etorkinak. Berria - Harian

Horretan, emaztearen egoitza senarrarena da, eta seme-alaba **adingabekoena** aitarena edo tutoreena. oinordekoa **adingabekoa** den bitartean, esklaboaren pareko da, denen jabe izan arren. Andres Urrutia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adingabeko atzerritarrei** (3); **adingabeko bat** (3); **diren adingabeko** (3)

---

adingabetasun *iz* adingabea denaren nolakotasuna.

Nire **adingabetasunaren** parterik handiena aitarekin igaro nuen, Antoniorekin, eta amarekin aste buru batzuetan izaten nintzen; ez dut apenas oroitzapenik hirurok elkarrekin bizi izan ginen urteetatik. Iban Zaldua

---

adinina ik **adenina**.

---

adinka *adlag* adinaren arabera.

Adinka emanez hona zer ateratzen zaigun: ama eskoletan sartzeko haur batentzat kontatu behar da 47 Euro eta erdi. Herria

20 urteko plana osatu dute, **adinka** sailkatuta. Berria - Euskal Herria

Ikasleek euskaraz irakurtzeko gustua ukan dezaten, Baiona, Kanbo eta Uztaritzeko ikastoletako hiru erakaslek [...] euskarazko obra batzu hautatu dituzte, 65 ikasleri **adinka** irakurrarazteko. Herria

Ez gira frantsesezko aldizkariak bezainbat bereizten ahal **adinka**, orduan ari gira 6 urtetarik haste, 11/13 urte arte. Herria

---

adinkide 1 *izond* adin berekoa.

Gazte **adinkide** batek jarraitzen zion, eta neska gazte batek. Patxi Zubizarreta

Baita familia osoa ere, Roke **adinkidea** barne. Txillardegi

Auzoak ez ezik **adinkideak** ziren Kaskagorri eta gure ama, urte berean jaioak biak ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Adinkideak ziren biak, iraultzakideak, burkideak, eta, seguru asko, hainbat aldiz Frantziako Batzarretan Iraultzaren eta Arrazoiaren aldeko hitzaldi sutsuak egindako Jean-Baptistek oso gustura entzungo zizkion burkide hari azken orduan Iraultzaren aurrerapenak eta abantailak goresteko zuzendu zizkion hitz loratu eta kementsuak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Garcilasoren antz handiagoa hartzen nion Azoríni, Somerset Maugham-ena baino, nahiz Azorín eta Maugham **adinkide** ziren. Anjel Lertxundi

Sorterrian irakasten hasi nintzeneko urte haietan adiskide bat egin nuen ikaslagunetan izugarri maite; **adinkidea** nuen eta artean biok gazte sasoi loratu berritan. Imanol Unzurrunzaga

Xabier Lete, Serrat, Benito, Llach, Bob Dylan, Laboa, Raimon... horiek guztiak **adinkide** ditut ia-ia: ni baino apur bat zaharxeagoak dira. Joxerra Garzia

Patxi Saez, nire **adinkidea** eta koadrilakoa hau ere, Lasalleren Donostiako barnetegira bidali zuten. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero deskubritu dut, nire **adinkide** guztiek hori entzun edo ulertu zutela. Ana Urkiza

Haurtzaroan Ixaskun eta biok oso maiz joaten ginen Goiara jostatzera; eta, era berean, gure **adinkide** (eta adiskide min) ziren Bego, Peru eta Markel Landatarrak gurera etortzen. Txillardegi

Garaikide izan ziren Quevedo eta Axular, ezen ez **adinkide**. Imanol Zurutuza

Gerora beste maskara batzuk jantziko zituen eta, kasik **adinkideak** ere baziren lagun biek mozorro-dantzan bizi osoan segituko zutela esan liteke. Edorta Jimenez

Mende erdi inguru bizkarrean daramagun denok entzun diegu eraztunaren kontua gu baino zaharragoei edo are gure **adinkideren** bati edo besteri. Joxerra Garzia

2 irud/hed

Kidetasun estuagoa baitzuten beren artean zibilizazio **adinkideek** beren artean eduki ohi zutena baino. Iñaki Mendiguren

---

adinluzetasun *iz* adinaren luzetasuna.

Espinosari gogoratu zitzaion beraren aitak esaten zuela landaldean gertatzen diren **adinluzetasun** kasu ia guztiak oroimen eskasari edo daten ulerkera lauso bati zor zaizkiola. gauchoei berdintsu ahaztu ohi zaie jaio ziren urtea eta berak sortu zituenaren izena. Juan Garzia

---

adinon *izond* ez ona eta ez txarra dena.

Biak batzen dituen titulu pertinente, erako, **adinona**, gaur zortzi, beste gai bat dela-eta, Euskal Herriko egunkari batean. Iñigo Aranbarri

---

adinondu, adinon(du), adinontzen *da* ad adinon bihurtu.

Ez lirateke **adinonduko** gure errezoak guztientzat. Juan Garzia

---

adinonez *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *adlag* garaiz.

Adinonez erreprimitu nintzen, neuk luzatzekotan egon nintzen eta. ETC-literatura, saiakera

---

adinonezko *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *izlag* une egokian egindakoa.

Erakunde horren jiran egin dira eta egiten dira oraindik gizonaren gobernuari buruzko gogoetarik interesgarri eta **adinonezkoenak**. ETC-literatura, saiakera

---

adintsu **1** *izond* adinduna, adin handikoa, adinean sartua. ik **adineko**.

Gizon **adintsu**, burusoil eta esanekoa, zerbitzu publikoan emandako berrogei urteren eta emakume noble poloniar baten nahikunde sozial betegabeen zamapean abaildua. Xabier Olarra

-Nora goaz, Lope laguna? -galdetu zuen gizon **adintsuak**, ahots lasaiz, bere burua askatasunera zeraman bidea hartua zuelakoan. Felipe Juaristi

Emakume **adintsu** guztiei zoragarri nintzela iruditu zaie. Jon Muñoz

Emazteki **adintsu** bat agertu zen: **adintsua** baina baita osasuntsua eta kementsua ere. Joan Mari Irigoien

Sendagile **adintsu** samar batek hartu ninduen. Joseba Urteaga

Euskalduna eta judu **adintsua** jaitsi egin ziren zubitik. Felipe Juaristi

Gehienetan, jende **adintsuak** ziren eta ez genuen haiekin batere harremanik. Daniel Landart

-Eskerrik asko denagatik -esan zion Lucyk emakume **adintsuarekin** maletak zeuden lekuraino inguratzen zen bitartean. Joxemari Iturralde

Petroven beldur guztia amarengan biltzen zen, aurpegi zurbileko emakume erkin eta **adintsu** horrengan. Jose Morales

Nik eman behar niola babesa, ama ordurako **adintsua** zelako, gogoz arras eroria, babesgabea. Fernando Rey

Andrea txikia zen, eta, nahiz **adintsua** ez izan, berrogeita hamarren bat urtekoa gehienez, pertsona hondatu baten itxura zeukan. Bernardo Atxaga

Bi ziren eserita zeudenak, espainiarrak eta **adintsuak** biak, lehen begiradara. Felipe Juaristi

Gazte nahiz **adintsu**, mundu guztia pilatzen zitzaion inguruan. Joanes Urkixo

2 (erkaketetan)

Worth eta Adair Arizonako indiar erreserba batean bizi ziren zazpi indiar navahorekin (sei 17-25 urte bitartekoak, eta zazpigarrena **adintsuagoa**, 55 urtekoa) harremanetan jarri ziren. Josu Zabaleta

Hango semea, Philippe, ni baino **adintsuagoa** zen, 32 urte. Daniel Landart

Gure artean badago ile urdineko agurerik, zure aita baino **adintsuagorik**. Elizen arteko biblia

Egia erran, luzaz uste izan nuen -ohidura zaharren arabera- Anita gure arreba **adintsuena** sortetxera ezkonduko zitzaigula. Daniel Landart

Lagunak joanda, don Pedrok mira bilatzen zuen hotelean; are eta gehiago bertan lan egiten zuten pertsona **adintsuenek** ere -"zer egiten dugu hemen bezerorik gabe, don Pedro? Bernardo Atxaga

Taldeko gaztenak 18 eta 19 urteko bi ikasle dira eta **adintsuenek** 77 eta 81 urte dute. Herria

· Horri guztiari gehituta bere **adintsuko** haurrez inguraturik egonen zela, neke zen aterpe hoberik bilatzea gure seme betiere bakarregiarendako. Aingeru Epaltza

Karrorat igan orduko, han kausitzen dut neska gazte aurpegi-argi bat, ilea beltx-beltxa, ene **adintsukoa**. Janbattitt Dirassar

3 (izen gisa)

Bi zaharrek adituen begiradaz begiratu zioten elkarri, **adintsuek** gorputzeko gorabeherak aztertzen izan ohi duten arretaz. Xabier Olarra

Bana beste mila euroko erretreta hunkitzen dute gaur egun departamenduan **adintsuek**. Herria

Goizean belotean ariko dira, arratsaldean ikuskizuna eskainiko dute, **adintsu** multzo batek espresuki apailatua. Herria

4 *izond* gutxi gorabehera adin berekoa.

Emeki trebatu zen eta laketu denbora hartako bertsulari haundienekin, Etxahun, Borddale, Atillo, **adintsua** zuen Otxalde. Michel Oronoz

Behin batean, Alde Zaharrean, elkarte batera afaltzera gindoazela, pankarta bat paratzen ikusi nuen Beñat zorionekoa, bere **adintsuko** koadrila batekin batean. Aingeru Epaltza

Une bat geroago gizon gazte bat sartu zen sukaldera, nire **adintsua**. Fernando Rey

Gure **adintsuko** mutiko gehiago bazen Garrüzeko herrian, guregandik berga gutitara. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adintsu bat (4); **adintsu batek** (3); **ama adintsua** (3); **emakume adintsu** (4); **gizon adintsu** (3); **gizon adintsuak** (4)

---

adintsuko *izlag* adin bertsukoa.

Karrorat igan orduko, han kausitzen dut neska gazte aurpegi-argi bat, ilea beltx-beltxa, ene **adintsukoa**. Janbattitt Dirassar

Gure **adintsuko** mutiko gehiago bazen Garrüzeko herrian, guregandik berga gutitara. Aingeru Epaltza

adinzahar *izond* adin handikoa.

Neguan nagoen arren eta adinberdea joan zitzaidan arren, zeren **adinzahar** bainaiz, ene hitza ez da biluzia, baina hostoz josia, gorputzaren negua hitzaren udaberriaz jantzi eta estali nahi banu bezala. Joan Mari Irigoien

---

adio *(orobat **adios** g.er.)* **1** *interj* joatean agurtzeko erabiltzen den hitza. ik**agur**; **aio**[1].

Adio, arma-lagunok! Iñaki Mendiguren

- **Adio**! -esan zuen Ingoldek, gizakiek Itzalasterri bidea ireki eta harresian zizelkatutako ate estutik igaro zen bitartean-. Agustin Otsoa

-Adio! -oihu egin zien zaldunak, itxura beldurgarriko fraide batzuen margolan batera burua sartuta-. Iñaki Mendiguren

Adio, bizkonde; egizu kontu ezen, zauden atakan, denbora arras baliosa dela: Prévanen zorionaz arduratzen emanen dut nik neurea. Jon Muñoz

Adio, adiskide ederra. Jon Muñoz

Adio, Ofelia, eta ongi gogoan hartu zer esan dizudan. Juan Garzia

- **Adio**, **adio**, Norbert! -esan zion Hagridek negar-zotinka. Iñaki Mendiguren

Adio, Sophie maitea; oraino komentuan banintz bezala zaitut maite. Jon Muñoz

-Tira, **adio**, Cassie, seiak aldera deituko dizut. Lopez de Arana

-Ba, **adio**, Antoine jauna. Monika Etxebarria

Adio guztiei, mila esker, gu ere bagoaz. Fernando Rey

Adio bada, maite polit hori; **adio**, haur maitagarri hori. Jon Muñoz

Adio, beraz: harresipean naiz, hamaiketatik hamabietara bitartean, zuengana bilduko. Juan Garzia

Hona bertzenaz izkiriatu dizudan zortzigarren orrialdea, eta akitua naiz; beraz, **adio**. Jon Muñoz

- **Adio** eta zuhur ibili. Koro Navarro

Adio zapatatxo zilar-koloreari, **adio** gorputzaldi txarra jartzen zidan amets galduen putzuari ere. Fernando Rey

- **Adio** -esan zuen patxada handiko filosofiaz eta oinez urrundu zen, bere agurrari inork ez ziolarik erantzuten. Mirentxu Larrañaga

Muxu bat eta **adios**. Xabier Mendiguren Elizegi

- **Adio** diruari! Migel Angel Mintegi

Adio, mila esker! Koldo Izagirre

Egongelara iritsi eta **adio** nire zoriona, ziplo amaitu zen: hantxe zetzan Miren, lepoa urratuta, odoletan blai. Migel Angel Mintegi

"Adio, banoa", esan zidan Gregoriok, nire lagun zaharrak. Koldo Izagirre

Gerrara elkarrekin joango ginen esperantza nuen; baina zu Hilen Bidezidorren bila bazabiltza, elkarri **adio** esateko ordua iritsi da. Agustin Otsoa

2 (izen gisa)

Ostalariak abiatzeko prest zeuden jadanik, eta **adiorako** ardoa laudorio eta adiskidantzazko adierazpen handien artean edan ostean, ibiltzeari ekin zioten. Agustin Otsoa

Ez nikek **adio** luzetan galdu nahi, zeren eta hik ere heure etxea baitaukak, eta han izanen dituk heure etxekoak aiduru. Joan Mari Irigoien

Adio epel bat eginik urrundu da mendebaldeko bidean. Aingeru Epaltza

Gero Perok **adio** hotza egin zidan, eta hantxe lotu nintzen, bihotza uzkurturik. Edorta Jimenez

Adio epel bat **eginik** urrundu da mendebaldeko bidean. Aingeru Epaltza

Munduko ontzi guztiek **adio** ankerra **egiten** dioten uhartetar bakartia iduriko zenuke. Koldo Izagirre

Munduko ontzi guztiek **adio** ankerra egiten dioten uhartetar bakartia iduriko zenuke. Koldo Izagirre

Kisketa eskuaz jiratuko du emakumeak, sudurra kristalaren kontra zapalduz oraindik, eta **adio** keinua **eginen** dizu eskuaz. Joseba Sarrionandia

Evelinek zurbil eman zion aurpegi, geldi, animalia babesgabe bat bezala: ez zuen ez maitasun, ez **adio**, ez esker on seinalerik begietan. Irene Aldasoro

3 irud/hed

Adio emaztea besarkatzeko parada. Aingeru Epaltza

Adio aleman familia bateko partaide izatearen pribilejioari: hori ere une horretantxe etorri zitzaidan burura. Anjel Lertxundi

Adio horri guztiari. Xabier Montoia

Adio Cebu, Agur Manila! Ramuntxo Etxeberri

Ai, ai, **adio** nere esku lana, hau gertatzen bazaut!Hemen bai ikusten dudala gabezia handi bat kluben aldetik, ez dutela asmatzen **adio** goxoak prestatzen. Herria

Baionak ez du deus egiterik izan, eta **adio** Europari. Berria - Kirola

Jakarta ez dago prest horiek ustiatzetik ateratzen dituen mozkinei **adio** esateko. Berria - Mundua

Genetika "txar"rari ez ezik, "on"ari ere **adio** esan beharko genioke. Juan Garzia

Hala, 2005era arte, **adio** esan zioten GR-4ari. Berria - Kultura

Matteo Fagninik **adio** esan dio aurtengo Tourrari, Domina Vacanzeko txirrindulari lonbardiarrak lepauztaia apurtua izan baitezake. kulturalki oraingo diskurtsoan **adio** egin zaie printzipio handiei, gizarte berri baten "utopiei". Berria - Kirola

Lan honekin, behin baino gehiagotan esan duen bezala, Obabako munduari **adio** egiten diola adierazi zuen egileak aurkezpenean. Berria - Kultura

Adio dominen bat lortzeko aukerari, **adio** lan ona egiteari. Berria - Kirola

4 ***adio egin***

Sudurra kristalaren kontra sakatuta **adio eginez** jarraituko du neskak. Joseba Sarrionandia

Leihotik burua atera eta Weasley jaun-andreei **adio egin** zieten, harik eta trena bihurgune batean bestaldera igaro eta bistatik ezkutatu zituen arte. Iñaki Mendiguren

Zatoz jaun medikuari **adio egiterat**! Joan Mari Irigoien

Egun hartan, **adio egiterakoan**, eskua luzatu beharrean, ohi zuen bezala, musu eman niezaion, aldiz, besoetarik atxiki eta musu eman zidan kopetaren erdian. Joan Mari Irigoien

Eta **egin** genion **adio** elkarri, eta zerbait hautsi zitzaidan barrenean. Joan Mari Irigoien

Huraxe eman zioten, zalantzarik ez, ordain bezala, aditzearen truke bere bi alabak [...] saldu eta eraman egin zituztela, eta berak ezin izan zier **adio** ere **egin**. Anton Garikano

· Kulturalki oraingo diskurtsoan **adio egin** zaie printzipio handiei, gizarte berri baten "utopiei", etab. Joxe Azurmendi

Kisketa eskuaz jiratuko du emakumeak, sudurra kristalaren kontra zapalduz oraindik, eta **adio** keinua **eginen** dizu eskuaz. Joseba Sarrionandia

Gero Perok **adio** hotza **egin** zidan, eta hantxe lotu nintzen, bihotza uzkurturik. Edorta Jimenez

Adio epel bat **eginik** urrundu da mendebaldeko bidean. Aingeru Epaltza

5 ***adio esan*** *(orobat **erran**)*

Adio esan eta zaldiz urrundu ziren. Agustin Otsoa

Ministerioko txoferrek orgatxoak ekarri zizkieten, kutxak deskargatu, Weasley jaunari **adio esan** eta alde egin zuten. Elkarri eskua estutu zioten **adio esateko**. Iñaki Mendiguren

Ez nuen beste erremediorik izan: esku bat altxatu nion Florari agur gisa, eta berak ere berea altxatu, eta **"adio" esan** zidan. Anjel Lertxundi

Haren familia abegikorrari **adio erran** eta Lapurdira aldatu ziren biak. Aingeru Epaltza

Ez nuen joan nahi zuri **adio erran** gabe. Anton Garikano

Mutilak orduantxe sumatu zuen **adio esan** beharraren gertutasuna. Patxi Zubizarreta

Hitzik gabe **esan** diot **adio**. Anjel Lertxundi

Hantxe ikusten nuen gizona kaleaz bestalde, tabernako ate aurrean, bezero bati **adio esaten** edo beste bati ongietorri egiten. Matías Múgica

Jaitsi, eta ama ikusi nuen, ontziak garbitzen, bere arropa beltzekin jantzita; luze begiratu nion, **adio esateko**. Juan Kruz Igerabide

· Abiatzeko eta Bilbori **adio esateko** unea iritsi zela jakin zuen berehala. Agustin Otsoa

Ongi gogoan daukat Donoxti-aldeko lagun batek nola bota zion behin gure zaharrari **adio esaterakoan**: "bueno, agur, zaindu! Iñaki Segurola

Adio esan nion etxeari, lorategiari, minutu batzuk egon nintzen eserita zuhaitzaren azpian eta **adio esan** nien auzoei. Felipe Juaristi

Setheren kontuak aditu zituenean, hankak zenbatu zizkion eta ez zion **adio** ere **esan**. Anton Garikano

6 *adioak egin*

Jiratu egin zen, **adioak egin** behar izan balitu bezala. Patxi Zubizarreta

Etxea bete lagun zuen, eta beti-betiko hainbat adiskide eta Purutasunaren senideak joanak zitzaizkion **adioak egitera**. Patxi Zubizarreta

Adioak egin eta bazihoala, Lupe itzuli zen. Pablo Sastre

Ardiesten du apezpikuaren baimena, **adioak egiten** ditu herriari eta badoha nobiziaren egitera. Xipri Arbelbide

7 *adioak esan* *(orobat* ***erran****)*

Bi egunen buruan, Abas eta Hamida **adioak esateko** elkartu ziren Al-Azar kalean. Patxi Zubizarreta

Adioak esan zituztelarik, ez ote zion esan errezatu egingo zuela bere alde Husainen hilobiaren aurrean? Patxi Zubizarreta

Bi egunen buruan, Abas eta Hamida **adioak esateko** elkartu ziren Al-Azar kalean. Patxi Zubizarreta

Adioak esan zituztelarik, ez ote zion esan errezatu egingo zuela bere alde Husainen hilobiaren aurrean? Patxi Zubizarreta

Musikaren Egunak **adioak erranen** ditu aurten Urdiñarben (Zuberoa), 30 urte beteko dituen honetan. ETC-prentsa

8 *adiorik ez*

Eta **adiorik ez**! Herria

Adiorik ez, zeure beti, Daniel. Patxi Zubizarreta

Ni ordurako ongixko gogait egina nengoen adio eta **adiorik ez** guztiez, nahita heldu nintzen belu nasara. Koldo Izagirre

Adiorik ez, manito. Eider Rodriguez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adio adio** (3); **adio atsekabe** (7); **adio egin** (10); **adio egiten** (4); **adio egiterakoan** (3); **adio erran** (7); **adio errateko** (3); **adio esan** (51); **adio esan behar** (6); **adio esan dio** (6); **adio esan diote** (4); **adio esan eta** (7); **adio esan zioten** (4); **adio esanda** (3); **adio esango** (10); **adio esango dio** (4); **adio esateko** (12); **adio esaten** (4); **adio eta** (6); **adio gisa** (3); **adioak esan** (3); **adiorik eta** (5); **adiorik ez** (6); **azken adioa** (5); **baina adio** (4); **da adio** (3); **edo adio** (3); **elkarri adio** (4); **ere adio** (5); **ere adio esan** (3); **eta adio** (24); **eta adio esan** (5); **eta ez adiorik** (6); **ez adiorik** (49); **ez adiorik eta** (5); **zion adio** (4); **zuri adio** (3)

---

adioka *adlag* adio esaka.

Zutik segitzen zuten, elkarri **adioka**, gazten azken lurrinen artean. Karlos Zabala

Bortan zagon, guri beha -nigarra begietan senarraren oroitzapena uste gabetan berpiztu ginakola- eskuarekin **adioka**. Michel Oronoz

Eskuarekin **adioka** ari zela: Berriz ere, zuer dener, milesker! Michel Oronoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eskuarekin adioka** (3)

---

adios ik **adio**.

---

adiposo *(corpusean ez dago; ETCn* ***126*** *agerraldi)* **1** *izond* gantzezkoa, koipezkoa. ik **adipotsu**.

Egunak, non zure patua ehiza-txakurraren usaimenaz atzetik joango zaizun, ikusi egingo zaituen, atzemango, bihurtuko hitzen eta ekintzen bidez, materia konplexu, opako, **adiposo**, zeina bestearekin, ukiezinarekin, materiak xurgaturiko zure gogoarenarekin betiko ehunduta egongo den. ETC-literatura, saiakera

Tindategi bateko erakusleihoko maniki biluzien erdeinua, Happy Noodle txinatar bistro **adiposoa** eta Pachinko saloi argitsu bat iragan zituzten. ETC-literatura, saiakera

Likidoak eta organoetako zuntz **adiposoaren** zatiak kendu eta polimero bat jartzen zaie gorpuei haien ordez; normalean silikona izaten da. ETC-prentsa

Gantz-metaketagatiko pseudoginekomastiatik bereizi behar da (obesitate garrantzitsua sindrome **adiposo**-genitalean): haztatuta frogatu daiteke (bular-estromaren trinkotasuna eta gantzarena ez dira berdinak), baina, batzuetan, azterketa histopatologikoak frogatuko du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, gantzak energia-gordailu biologikoak dira eta gantz-zelula edo zelula-**adiposo** izenez ezagutzen ditugun zeluletan metatzen dira, energia-premiak daudenean gorputzak erabili ahal izateko (CO2 eta H2O bihurtuz). ETC-zientzia, zuzenbidea

Biologikoki emakume diren pertsonetan, efektua honetan datza: Masa **adiposoaren** eta bularraren erredukzio bat, giharren handitzea eta ahots tonuaren aldaketa batez ere, tratamendu endokrinologiko bidez. ETC-entziklopedia

Izaki helduetan, muin gorriak hezur arolen zirrikituetan irauten du, tartean hezur luzeenean. Ehun biguna da, zuntz erretikularrez eta zelula ugariz osatua: **adiposoak**, makrofagoak, erretikularrak eta zelula linfoideen aitzindariak. ETC-entziklopedia

2 *ehun adiposo* *(corpusean ez dago; ETCn* ***19*** *agerraldi)*

Lehen esan dugun bezala, obesitatea **ehun adiposoaren** gehitzea da; beraz, **ehun adiposoa** baloratzea ere garrantzitsua da, gizentasun mota zehazteko eta zuzentzeko neurri aproposak hartzeko. ETC-prentsa

Gotemburgo-ko Sahlgren's Hospital-eko Per Bjorntorp izan da azterketaren zuzendaria, eta obesitatearen eta **ehun adiposoko** gaixotasunen aditu handienetakoa bezala jotzen den irakasleak esan zuenez, bi dira ikerketa horren oinarriak. ETC-prentsa

Izakien **ehun adiposoan** metatzen dira eta kate trofikoan zehar gero eta handiagoa da metaketa. ETC-prentsa

[...] mintz seroso horrek sabelaldeko barrunbea estaliko dizu, eta organoen inguruan tolestuko da, eta tolesetako bati, urdaila eta hestea sabelaldeko paretekin lotzen duen **ehun adiposo**, odol eta linfa hodiez osaturiko toles horri [...] ETC-literatura, saiakera

Ehun adiposo arrea ez da gordailua, baizik eta ekintza termogenikoa du, beroa ekoizteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aipatzekoa da, halaber, **ehun adiposo** hipertrofiatuak, non nolabaiteko hipoxia gertatzen baita, hantura-eragile diren zitokinen ekoizpena areagotzen duela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ugatzak batez ere **ehun adiposo**, glandular eta konektiboz osatuta daude. ETC-entziklopedia

---

adipotsu *(corpusean ez dago; ETCn* ***18*** *agerraldi)* **1** *izond* gantzezkoa, koipezkoa. ik **adiposo**.

Gainera, ikerketek adierazi dute resberatrolarekin konbinatuz zelula **adipotsuen** produkzioa inhibitzen dutela. ETC-entziklopedia

2 *ehun adipotsu* *(corpusean ez dago; ETCn* ***15*** *agerraldi)*

Horri esker, inuitek **ehun adipotsu** berezi bat daukate, hotzaren presentzian UCP-1 proteina (ingelesezko uncoupled protein-1) adierazten duena. ETC-prentsa

Aurkitu ditzakegu ehun konektiboan zehar sakabanatuta edo multzo txikietan; baina, beste toki batzuetan ehun guztia bete dezakete, **ehun adipotsua** eratuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Garondoko triangelua **ehun adipotsuzko** geruza batez estalia dago. ETC-entziklopedia

Animalien kasuan **ehun adipotsuko** zeluletan dago, hau da, adipozitoetan. ETC-entziklopedia

---

adipozito *iz* gantz zelula.

Kulturak, sistemak, psikologiak eta bestek agindu dizkiguten elikagaiak egokienak ez ditugunez, horietara jo beharko dugu baina, hori bai, erabateko liraintasuna ("0 ? I" edo, bestela nahiago badugu, "X=Ø", **adipozitoak** konstituzionalak direla ahantzita) eredutzat hartzeke, Thanatos hor gibelean ari baita lardaskan, lokartu gabe. Edorta Agirre

---

adirazbide ik **adierazpide**.

---

adirazpen ik **adierazpen**.

---

adiskidantza *(ETCn **1.013** agerraldi; orobat **adixkidantza** g.er.)* **1** *iz* adiskidetasuna.

Volanges andreak herra dizu, eta herra **adiskidantza** baino begi-zorrotzagoa eta antzatsuagoa izaten da beti. Jon Muñoz

Betiere haren **adiskidantza** zen, zinez, nire amodioari ihardesten ziona. Jon Muñoz

Eztabaidatzen dugu asko, hitz egiten dugu asko, eta, horrela, **adiskidantza** handitzen da. Berria - Ekonomia

Elkarren arteko maitasunean oinarritzen den **adiskidantza** ere desagertu egingo da. Imanol Unzurrunzaga

Lehen mina aipatu duzu, maitasuna lortuko ote dugun ziur jakin gabe ez dugula **adiskidantza** arriskatzen, eta hori mina leuntzeko bide bat besterik ez dela. Pako Aristi

Gerora, bata zela eta bestea zela, galdu egin zen **adiskidantza** haren muina. Anton Garikano

PSOEren eta EAJren arteko elkarlana eta **adiskidantza** ituna burutu aurretik ere nabarmena zen arren [...] 1985ean sinatu zuten Gasteizen agintealdirako gobernu ituna. Jokin Urain

Konfiantzan, ezaupidean eta **adiskidantzan** pertsonen arteko tratua erraztu egiten da. Iñaki Segurola

Sekula ez dut dudarik egin, adiskide gazte eta ederra, ez niri didazun **adiskidantzaz**, ez niri dagokidan orori buruz agertzen duzun interes zinezkoaz ere. Jon Muñoz

Baina nik ere badiat gero, hire **adiskidantzaren** beharra. Daniel Landart

Askatasun intelektualaren horizonteen handiak, eztabaidak, musika, **adiskidantzaren** alaitasuna. Ramon Etxezarreta

Adiskidantzaren izenean, zaude emakume hori neuretu dezadan arte, baldin hura gaitzerran nahi bazeneza. Jon Muñoz

Har ezak handik nahi duana eta edan gure **adiskidantzaren** izenean. Hasier Etxeberria

Era honetan eginiko harremanak antz gehiago izango du eulien arteko **adiskidantzarekin** gizon-emakumeenarekin baino: azkar sortzen da eta erraz desagertzen. Harkaitz Cano

Transzendentearen menean dagoenak ez du **adiskidantzaren** bidez bere idurikoei sobera hurbildu behar, asimilatua izanen baita ondarrean, apez langileak langile bilakatu ziren bezala. Piarres Aintziart

Badakizue bideak eta presondegiak **adiskidantzak** egiteko lekurik egokienak direla. Koldo Izagirre

Funtsean ez baitut mesfidatzeko ezein arrazoirik; **adiskidantzak** dakarren onginahia bertzerik ez da. Jon Muñoz

-Lagun hori -esan zion Nadiak **adiskidantzaz**-, Irkutskeko bidea hartu beharko duk berriz ere gurekin. Karlos Zabala

Sinets nazazu, andereño, amodioa **adiskidantzaz** ordaindu nahi izatea, ez da eskergabekeriaren beldurrez egotea, da eskergabearen itxura izateari berari zaion ikara. Jon Muñoz

Adiskidantzan, nor giren erakusten behar dügü orai hasi. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

39.000 oinetako altueran gaude, baina norbaitek aireportuko lurrean esandako hura datorkit gogora: hau **adiskidantza** eder baten hasiera izan liteke! Pako Aristi

Horrek behar dizu frogatu zuri dizudan **adiskidantza** handia. Jon Muñoz

Adiskidantza haundia baitzuten, ez da harritzeko anaitasun hitzarmen bat sinatua izan bazen handik laster Lizarra eta Donibane-Garaziren artean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eman dezagun, askotan gertatzen den legez, **adiskidantza** sendo bat dagoela bien artean. Pako Aristi

Irakaspen ederra, gizakion arteko **adiskidantza** zuhur baterako, bi aberek hartzen duten jarrera hori. Patziku Perurena

Babeti eskatzen ziola harenganako amodio leialaren eta neurekiko **adiskidantza** zaharren artean hautatzea. Itxaro Borda

Adiskidantzarik gorenenak, amodiorik sutsu, miretsi eta errespetuzkoenak, isiltasunean oinarritzen dira. Pako Aristi

Jende aunitz eta aunitz ezagutzen dut jadanik, eta hutsuneak izan arte ez zait **adiskidantza** berrietarako lekurik gelditzen. Aingeru Epaltza

Nagusigo ezti hori ordea, ez da **adiskidantza** antzuak sortua; soil-soilik amodioak dakarke. Jon Muñoz

Zure ontasun benaz ama baten gisakoak gozatu ondoren, badut harengandik ahizpa baten **adiskidantza** amoltsua igurikiteko eskubidea. Jon Muñoz

Ez hain zuzen egiatasun atsegina, fidantzia eztia, **adiskidantza** sentikorra balioesten ez ditudalako. Jon Muñoz

Adiskidantza erraz baina ustekabeko eta iragankorretara. Bego Montorio

Baldin ahalke gorritu beharko nindukeen sentimendurik kausi bazeneza gutun honetan, zeure **adiskidantza** barkaberaz estal ezazu. Jon Muñoz

Utziozu azkenik **adiskidantza** zuhurrari noizean behin zure plazerren gidari izaten. Jon Muñoz

Badira astebeteko gaizki ikusiak eta hilabeteko **adiskidantzak**. Josu Zabaleta

Benetako **adiskidantza** sentitu zuen azkenean Normandiarrarekiko; bihotz onekoa zen, odola burura igotzen ez zitzaionean. Karlos Zabala

Halakoa baita fidantziazko **adiskidantzaren** xarma: horren kariaz zu zaitut betiere gehien maite, baina, egiazki, zalduna zait gehiago laket. Jon Muñoz

Adio, andre maitea; har ezazu betiko nire **adiskidantza** egiazkoa. Jon Muñoz

Eskertzekoa da horrelako gizon garbiaren **adiskidantza** doakoa. Hasier Etxeberria

Ez traditu, gutizia baztertzaile batez, elkarri zin eginik diogun **adiskidantza** ezin hautsizkoa. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan)

Adiskidantza harremanak lortu dira jende batzuek horretarako lan egin zutelako. Berria - Euskal Herria

Ez dira beharbada ezkontza edo **adiskidantza** loturak filiaziokoak baino ahulagoak, eta askoz ere zorion ekarle oparoagoak direteke aldi berean. Halaber aspaldiko urteetan bada **adiskidantza** hitzarmen bat Donapaleu eta Zangotzaren artean, Maule eta Tuteraren artean. Joxan Elosegi

Eguberriko **adiskidantza** partida Bilboko San Mameseko zelaian jokatuko da abendoaren 28 an. Herria

4 ***adiskidantzazko*** *izlag* ik **lagunarte 6**.

Eramangarriagoak zitzaizkion haiexek, nolanahi ere, **adiskidantzazko** ezkontza aratzen edota zoriontasun betierekoan bizi ziren ezkontideen inguruko kontuak baino. Mirentxu Larrañaga

Oso egintza **adiskidantzazko** eta pertsonala ematen zuen: Arizonari egin genion agurraren oroitzapen gisa geldituko zitzaidan gogoan. Xabier Olarra

Gure harremanak beti onak izan ziren, zenbait aldiz **adiskidantzazkoak**. Marzel Etxehandi

Arrate eta Bidasoa Asobal ligako taldeek **adiskidantzazko** partida bat jokatuko dute gaur 19: 00etan Zarauzko kiroldegian. Berria - Kirola

Euskadiko tenis selekzioak aise menderatu du Txinakoa, Donostiako Tenis Klubaren mendeurrena ospatzeko egindako **adiskidantzazko** torneoan. Berria - Kirola

5 *adiskidantzazko partida*

Txapelketa nagusian fruituak jasotzeko, euskal taldeek **adiskidantzazko partidak** jokatuko dituzte. Berria - Kirola

Adiskidantzazko partida da ofiziala ezin da izan Athletic Espainiako Superligan ari delako, eta Reala, sortuberritan, Lurralde Mailan eta aurten Orion eta Zarautzen ospatuko den Kilometroak jaiaren alde izango da han bildutako diru guztia (6 eurotan da sarrera helduentzat, eta 4 eurotan haurrentzat). Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adiskidantza amoltsua** (5); **adiskidantza eta** (5); **adiskidantza hori** (3); **adiskidantza partida** (6); **adiskidantzaren izenean** (3); **adiskidantzazko partida** (5); **adiskidantzazko partida bat** (4); **adiskidantzazko partidak** (3); **arteko adiskidantza** (5); **dizudan adiskidantza** (4); **eta adiskidantza** (6); **nire adiskidantza** (7); **taldeek adiskidantzazko** (3); **zure adiskidantza** (11); **zure adiskidantzak** (3); **zuri dizudan adiskidantza** (3)

---

adiskide *(ETCn **17.943** agerraldi; orobat **adixkide** g.er. eta **aixkide** g.er.)* **1** *iz* norbaiti adiskidetasunez lotua dagoen pertsona. ik **lagun**.

Tiroko errege Hiram-ek, aitaren ondorengo errege Salomon gantzutu zutela jakitean, bere zerbitzariak bidali zizkion; Hiram bizitza osoan Daviden **adiskide** izana zen. Elizen arteko biblia

Lehen nire ama zinen, orain amaizuna; saminez hilarazi nahi nauzu, **adiskideak** eta lurrak kenduta. Juan Kruz Igerabide

Nire **adiskidea** lo zegoen betiko. Bernardo Atxaga

Izan ere, **adiskide** batek soilik daki bere eskaintzei agindu-indar berezi hori ematen, konfiantza berezi bat, beste inork ematen ez diguna. Anjel Lertxundi

Dena kalmatu zelarik, bakea itzuli zelarik bi **adiskideen** artera, Ibon ohartu zen zerbait berri agertzen zela itsasoaren gainetik: uharteak ziren. Ramuntxo Etxeberri

Brunok, edo Bruk, honela esaten baitiote bere **adiskideek**, Hervé Guiberten liburua eskuratzen dit, Bizia salbatu ez zidan laguna, pasarte bat seinalatuz. Bernardo Atxaga

Orain guztiok **adiskide** gara. Gotzon Garate

Hamar bat urtekoa ematen nuen nik, eta, **adiskideek** bezala, argitan neuzkan belarriak; argitasun gorabeherarik gabe, zeren, galderaren gaia ozta ulertuz, ez bainuen algararik egiten. Bernardo Atxaga

Ahaideren bat, **adiskideren** bat izango zuen haren trena noiz iritsiko zain? Karlos Zabala

Haren **adiskide** Epsteinen iritzian, berriz, gauzak ez dira horren garbi. Josu Zabaleta

Baita aienatu behar du Jainkoaren **adiskideekin** eta jende onarekin edukitako tratuak dakarren atsegina ere. Joan Mari Lekuona

Galdetu zidan nire familiaz, haurtzaroaz, **adiskideez**... Alberto Barandiaren

Aita eta ama kanpora atera dira eta Margot bere **adiskide** Treesen etxera joana da, mutil batzuekin ping-pongean jolas egitera. Josu Zabaleta

Adiskidearen bisitaren ordua gogoratu. Josu Zabaleta

Bigarren fraideak, bere **adiskideari** zer-nola egin zioten ikusirik, eragin zion bere mando handi gazteluari, eta han abiatu zen landan barrena antxintxika, haizea bera baino arinago. Patxi Ezkiaga

Nire ingurukoek dohatsutzat jo ninduten, ikasketak oraino akitu gabea abiatu bainintzen lanean, aita zenaren lehengusu baten **adiskide** baten gomendioei esker. Aingeru Epaltza

Amaren aldeko erro nafarrak ez galtze aldera, Arizkunen bigarren etxea erosi duen **adiskidea**. Hasier Etxeberria

Ondasunak neure ahaideei edo **adiskideei** edo lotua nagoen pertsonei neronek banatzen badizkiet, lau gauzari begiratu beharko diet, zeinak aukeraz mintzatzean aipatu diren 184-187. Patxi Altuna

Aste-amaieretako ohizko txikiteoan berriketan aritu naiz literatur kontuetan zaletua den **adiskide** batekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Oraikotik ba, bazekien nor ziren Ermita eta Basoi, eta betiko **adiskideak** zituen. Michel Oronoz

Pixkana-pixkana teklen melodiak -Morfeoren ahots goxo bihurturik jada- hartu zuen **adiskideen** elkarrizketen zarataren lekua. Antton Olano

Adiskideek esan didate hilotz bat dudala hozkailuan gordeta. Javi Cillero

Bidez bide dabilenak, ostatu asko eta **adiskide** gutxi; hala dio esaerak, eta bidaia-zaletasunak egin nau, beharbada, hain bakarti. Anjel Lertxundi

Minutu batzuk beranduago, makillatuta eta apainduta, sukaldera sartu zen eta bi **adiskideak** mahaian jarri ziren gosaltzen. Iñaki Zabaleta

-Hemen **adiskideek** ere bizkarra ematen ditek apartamentu bila habilela esaten badiek. Harkaitz Cano

Poesia biziki maite-maite zuten eta liburu-denda bat zabaldu zuten bi **adiskidek** hiri koxkor batean, bizimodua handik ateratzeko asmoz. Josetxo Azkona

Besteak beste, lagun eta ezagunen erretratu gupidagabeak ageri dira koaderno horietan, **adiskide** hauek X letraz edo inizialekin bakarrik izendatuak ageri diren arren. Harkaitz Cano

Adiskideari, bertsozalea ez izaki, bete-lanak, eder-lanak eta hizkuntz-jolasak ez zaizkio axola. Andoni Egaña

Apika zuk ere korrelako kilinko fin bat bear zinoke zore uzkizilo ersi korreki plazer andi gozatako (Uztarrozen badut **adiskide** bat Alex izena duena. Aitor Arana

-O! Horixe ezagutzen dudala, **adiskidea** ere banaiz harekin. Matías Mujika

- Egin Lukasek esaten duena, eta laster zaudete **adiskiderik** gabe -esaten zuen Markosek. Jon Alonso

Ene maisu eta **adiskide**: Joan Mari Irigoien

Jauna, beharturik al gaude **adiskideak** hain modu estuan aukeratzera? -esan zuen bihurrikeriaz. Monika Etxebarria

Liburu honek nekez ikusiko luke argia zenbait **adiskideren** laguntzarik izan ez banu. Pello Salaburu

Egun hartan **adiskide** askok ikusi zuen Jimmy kontinental haien konpainian. Irene Aldasoro

Adiskideei keinu egin, eta kafea eskatu duzu barran. Rafa Egiguren

Lehen eta azken gutun hura bidali zionean, Manuel Zarraolandiak jadanik bost urte zeramatzan preso, eta haren **adiskideen** ustez, beste hainbat eta gehiago ere igaro beharko zituen, etxeratu aurretik. Pedro Alberdi

Bestela ez zidan **adiskide** eta etxekoentzat erabiltzen den eran hitz egingo. Hasier Etxeberria

Gure ahaide guztiak eta gure **adiskideak** etxeetatik irten ziren gu agurtzera, baina inork ezin zuen gelditu gure lasterketa. Juan Kruz Igerabide

Galderak gutxi dauka gaiztotik, nire harrokeriaz harrituko litzatekeen **adiskidearen** tonuan egin dit: Koldo Izagirre

Hagrid armiarma erraldoien **adiskide** zen, hiru buruko txakur gaiztoak erosi zizkien arrotz batzuei tabernan, eta dragoi-arrautzak isilean eraman zituen bere etxolara, legezkoa ez izan arren. Iñaki Mendiguren

Horren erremedio bakarra amaren maitasuna, edo **adiskideen**, egiazko **adiskideen** maitasuna da. Josu Zabaleta

Nire **adiskide** baten neskalagunaren bidezko deia izan duk. Unai Iturriaga

-Aspaldion ez haugu mastan ikusi, Hernando - esan zidan, **adiskideen** arteko begi-keinu eginez nire grazia zela-eta. Edorta Jimenez

Nire **adiskideak** keinu bakemaile batez zabaldu zuen eskua. Alberto Ladron Arana

2 (deiki gisa)

Begiratzen diot ispiluari eta nire buruari: "**Adiskide**, hire garaian gose galanta pasatu beharko huen". Berria - Kirola

-Lortu dugu, **adiskide**, lortu dugu! -esan dit, alkohol hatsa zeriola. Jon Arretxe

Zuk! Zuk! Zuri zor dizut, **adiskidea**, galdu izana, zuri! Josu Zabaleta

Ederki ezagutzen zaitugu, **adiskidea**.->02MuJA02¬100<--Adizu, **adiskide**, zatoz hona eta eseri! Ander Irizar

Ezagutzen dituzu, ene **adiskidea**, atseginen ditudan Normandiako itsasertzeko puntuak, Bourgd'eau, Tréport eta Etretat. Koldo Izagirre

-Milla esker, **adiskideok** ... Milla esker! Txillardegi

Agian jendea garaiz lehen hasiko zen Suteen Gaua ospatzen... ez da datorren astera arte, **adiskideak**. Iñaki Mendiguren

Eta horrelakoetan, gertatu ohi zait, ezabaturikoa dena delarik ere -lerro huts bat, hitz soil eta arrunta, gutun baten burua bera, **adiskide**, bi hitz besterik ez" eta antzekoak-, ordeztu ezina iruditzen zaidala, inspirazio argitsuenaren emaitza bailitzan. Ramon Saizarbitoria

Oi, **adiskide**, emaidazu musu! Ez zinateke nire neba izango bestela pentsatuko bazenu; baina, mesedez, emaidazu xehetasun gehiago gizon horren itxuraz eta zurekin izan dituen gozamenez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Tente, **adiskidea**, tente. Aingeru Epaltza

-Ez, **adiskidea**, ez; ez dut zure borondate onaz baliatu nahi. Koro Navarro

-Adiskidea, zein leinu eta familiakoa zara? Jose Antonio Mujika

Adiskide, hik ba al dakik zer den hi bezalako mutiko batentzat ni bezalako gizon baten laguna izatea? Anjel Lertxundi

Bai, **adiskide**, bai, nekatuta zeunden, Oportotik etorri berria, eta asteburu osoan idorreriak eragindako nahi eta ezina kanporatu nahi zenuen. Javi Cillero

Adio, **adiskideok**! Jon Arretxe

-Benetan distiratsu zaude, **adiskide**. Juan Kruz Igerabide

3 (izenondoekin)

-Bran! - oihu egin zuen Fionnek aldi berean alarma gorrian, bere **adiskide** leiala hila zelakoan. Joanes Urkixo

Ordubete lehenago solasaldi oso delikatu bat izan zuen **adiskide** bitxigile batekin, eta egun argitan erakutsi nahi izaten ez diren joiak eskaini zizkion hari, erosi nahi bazituen. Anton Garikano

Berak galdua zuen sinesmena, baina, konfirmazioaren kate hartan sartuta zegoenez gero, bukaeraraino iritsi behar; **adiskide** kristauengatik eta batez ere gurasoengatik egiten omen zuen, baina, nire sinesmen-gabezia ezaguna bide zuenez, pontekotzat ni hartuta, modu sinboliko batean, bere buruarentzat bada ere, ekitaldi harekiko arbuio antzeko bat adierazi nahi zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala bada, gure Andreas eseri zen, eta gizon berritua izateko kontzientziarekin garai batean edukitzen zuen boz segurua atera zitzaion eskatzeko, orain **adiskide** zahar maite baten antzora itzulia. Matías Mujika

Adiskide maiteak, senarrak berak ere alde egin zion azkenean. Koro Navarro

Baina zenbat eta argiago etorri gogora nire ezagun herren horiek guztiak, orduan eta argiago agertzen zitzaidan zenbateko aldea zegoen haien elbarritasunaren eta neure **adiskide** berriarenaren artean. Matías Múgica

Ene **adiskide** on hori; ni ere berdin hire zerbitzuko: Juan Garzia

Haren lana, pentsamendu espainol original bat badagoena frogatzeko, Menéndez Pelayo **adiskide** gazteago eta jantziagoak jarraitu du. Joxe Azurmendi

Oi, nire barrenean banekien **adiskide** jator baten aurkako gutxiespen, esker txar eta desohorearen eragile nintzela. Eduardo Matauko

Ez dute lagun eta **adiskide** eskasik holako gizonek. Herria

Alkimista eta kabalisten mikrokosmoa, **adiskideetan adiskide** zehatza, multum in parvo gurea! Juan Garzia

4 (izenondo gisa)

Gero eta urduriago dago biografoa, lotarako pastillak hartzen hasi da, psikologo **adiskide** batek atsedena hartu behar lukeela aholkatu dio. Anjel Lertxundi

Eugène Etienne Orango diputatu **adiskidearen** bidez barne ministroari eskatu zion anaia apeza Baionara izendatua izan zedin. Xipri Arbelbide

Hiri polit honetako alkate jaun bezala geure gudalburu **adiskide** jator bat daukagu, Soler izenekoa, eta nafarra. Jokin Urain

Xabier Laka eskultore **adiskideari** ikasia diot, autobus bidaia berritsuetako batean, metaforaren honako definizio hau: Joxerra Garzia

Edo teknika eta zientzian -Andoni Aizpuruk estimatzen duen "satelite **adiskidearengan"** - gehiago fio gara, hor goiko santu eta santa ziurxeagoak liratekeen horietan baino? Pello Zabala

5 (adizlagun gisa)

Txatarrategiko nagusiak, hala ere, bazekien nola jokatu Federicorekin, eta baso bat ardo eskaintzen zion barreneko sua baretzearren, eta, hala, **adiskide** jarraitzen zuten beti. Pello Lizarralde

Kurt delako kameralari baten **adiskide** egin zen Ivan, filmaketak iraun zuen denboran. Iban Zaldua

Hainbeste gauza ikasita, trebe baino trebeagoa izateraino iritsi zen, eta, yate-zaleen bileraren batean Carl ezagutu eta elkarren **adiskide** bihurtu zirenean, den-dena kontatu zion. Karlos Zabala

Euria **adiskide** bilakatu zitzaigun, tenperaturek behera egin zuten eta askotan izan nuen berokia faltan. Edorta Jimenez

-Hobe izango diagu -erantzun zuen irribarrez- bakoitza bere tokian geratzen bada, eta beti bezain **adiskide**. Koldo Biguri

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta egin du, problemaren soluzioa familia eta **adiskide** giroan bilatu behar dugula, Kosta Atlantikotik atera eta, ospitale batean bakarrik utzi beharrean, Goio lagunen batengana eraman beharko genukeela. Joseba Sarrionandia

Adiskide harremana izan zuen harekin 1937. urtea arte behintzat, urte horretan haren Basileako etxean egon baitzen Baroja "babes hartua". Josu Zabaleta

Piarres Lafitte zenaren hilobi aitzinean da lehenik **adiskide** multxo bat bildu. Herria

Herriarena lehiaketa Pilotaren **adiskide** besta goxoa zuen, eguerditik hasirik bazkariarekin, kantu eta omore onean. Herria

7 ***adiskide handi***

Patrice, Abelen **adiskide handia** zen. Daniel Landart

Txikitan hanka konpondu zidanetik, gure etxean **adiskide handi** bihurtua zen. Juan Kruz Igerabide

Adiskide **handi** hori, nire azalpena ez duk inondik ere sinesgaitza. Antton Olano

Barkatuko ahal dit euskaldunen adiskide **handi** izan zen idazleak itzulpen hau proposatzea. Piarres Aintziart

Meza emaile ginuen Jean Etcheverry, ondoan zauzkala Xalbador zenaren bi **adiskide handi:** Koxe Mari Aranalde eta Antonio Zabala. Herria

Eta orain, auzoko emazte xahar baten xakurra, **adiskide handi** zaukana, du rotweiller horietarik batek xirtxikatu. Herria

8 ***adiskide kutun***

Eta nik esaten banuen: "fida zaitez Jaungoikoan", arimak ez zidan kasurik egiten, eta arrazoiz, galdutako **adiskide kutun** hura egizkoagoa baitzen eta hobeagoa, inolaz ere, itxaron nezakeen amestutako jainko bat baino. Imanol Unzurrunzaga

Mirespen zozolotu batez begiratzen zidan nire **adiskide kutunak**. Alberto Ladron Arana

9 ***adiskide mami***

Solaskidearen jendetasuna eta adeitasuna mirestearen zale, arrotz batek **adiskide mamienetakotzat** hartuko zuen. Patxi Zubizarreta

Eta agertu zion bere kezka bertze fraide frantziskotar bati -zeina baitzen bere **adiskide mamia**, adinetarat heldua, jakintsua eta esperientzia handikoa, eta zeinari frai Domenico baitzeritzan-, eta honek liskar egin zion eta erantzuki. Joan Mari Irigoien

Opera bukaturik, teatroko atseden gelara joan nintzen neure adiskideei ikustaldi bat egitera; han kausitu nuen Émilie **adiskide mamia**, anitz lagunez inguratua, gizon zein emakume, guztiak oro hark Pn afaltzera gonbidatuak. Jon Muñoz

Etxe aldera abiatu zen, loaren saria hartzera, eta bidean Inozentziorekin egin zuen topo, Joanesen aita zenaren **adiskide mamiko** izanarekin. Felipe Juaristi

Han, **adiskide mami** izan zuen Jean Bruillot, kalonje eta txantrea, zeinarekin letania ederrik salmodiatzen baitzuen Mariaren ohorez. Juan Garzia

10 ***adiskide mamiko*** adiskide mamia. ik **mamikotasun**.

Etxe aldera abiatu zen, loaren saria hartzera, eta bidean Inozentziorekin egin zuen topo, Joanesen aita zenaren adiskide **mamiko** izanarekin. Felipe Juaristi

11 ***adiskide min***

Aspaldi umezurtz geratutako haurride bakar bizi-alarguna nintzen, eta ez nuen **adiskide minik** . Juan Luis Zabala

Amak eta herriko bere **adiskide min** batek bakarrik ezagutzen dute egia. Joxean Agirre

Adiskide minak ginen. Daniel Landart

Geetharen lankide batek **adiskide min** bat egin zuen, bezeroen artean. Gotzon Garate

Californiara egindako bisitaldi batean aspaldiko **adiskide min** judu batekin egin zuten topo kalean. Ramon Etxezarreta

Angel bere **adiskide minak** idatzitakoak behar zuten izan. Bernardo Atxaga

Jeronimo Badiola, **adiskide mina** . Joxemari Urteaga

Eta Ibarra, nire **adiskide mina** ? Alberto Ladron Arana

Galaad zenak, **adiskide mina** baitzuen, asko saiatu ondoren, dena atera zioan Lanceloti, eta bera joan zitzaioan kontuarekin Ginebrari. Juan Kruz Igerabide

Eugenio Gabilondo Alkortak (1913an hila) Sarriegi ezagutzen zuen, eta **adiskide minak** izan ziren gainera. Askoren artean

Sémion Lipkine **adiskide minari** bidali zion ea argitara eman ote zezakeen jakin nahian. Felipe Juaristi

Bere zorigaiztoaz txisteak eta pasadizoak kontatuz hainbat algara eginarazi zion Angieri Tom **adiskide minak** . Iñaki Zabaleta

Adiskide mina dut Ramiro, eta burutik jota dago. Jon Muñoz

Elkarren **adiskide minak** gara askotan... Andoni Egaña

Mirentxu mutil zaharrenaren **adiskide mina** zen. Gotzon Garate

Ez ahal dakizu Franco-k espainiol Elizaren benedizionarekin tirokatu dituela hamasei apez euskaldun, haien artean Aitzol euskaltzale suharra, haien artean ere ene **adiskide min** baten osaba. Herria

Realak bai, **adiskide mintzat** du Osasuna, baita baloia jokoan denean ere. Berria - Kirola

Bat-batean denak besarkatzen hasi zaizkio, aspaldi elkar ikusi ez duten **adiskide minak** balira bezala. Berria - Euskal Herria

12 *adiskide min-min*

Adiskide min-minak izan gaitezen! Gotzon Garate

13 *adiskide mindu* adiskide min bihurtu.

Elgarrekin pasatu genituen hamabost egunetan adiskide **mindu** ginen. Marzel Etxehandi

14 *adiskideak egin*

Eskolan eman nituen urte bakanetan hainbat ezagun eta **adiskide** egin banituen ere, gerrak berekin ekarri zuen harremanen etenaldiak haien oroitzapena marguldu eta beste haurrenganako halako beldur lauso bat landatu zuen nire baitan. Alberto Ladron Arana

Ez diot Griselleri esan Europan zaudenik, baina, ondo iruditzen bazaizu, agian esan egingo diot, ez baititu **adiskideak** erraz egiten eta badakit atsegin izango lukeeela bakarren batzuk hurbil dauzkala sentitzea. Ramon Etxezarreta

Hunek ere **adiskideak eginak** zituen denetan. Herria

Adiskideak egiteko garaia pasa zela dirudi. Pako Aristi

Ez zuen uste izan oroitzapen haren aurrez aurre gertatuko zenik berriz, **adiskideak egindako** zerrendako hirugarren matematikariari ekitean, "Grosrouvreren egitarauari jarraituz". Jon Muñoz

Harremanak hasi, **adiskideak egin** , ahalaz, baina bakoitzak bizirik irauteko borroka zeraman. Marzel Etxehandi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

adiskide amoltsua (6); **adiskide artean** (5); **adiskide asko** (7); **adiskide atsegin** (5); **adiskide atsegin hori** (5); **adiskide bakarra** (6); **adiskide bat** (69); **adiskide batek** (54); **adiskide batekin** (20); **adiskide baten** (27); **adiskide bati** (24); **adiskide batzuek** (8); **adiskide batzuekin** (8); **adiskide batzuen** (10); **adiskide batzuk** (11); **adiskide berriak** (5); **adiskide bezala** (7); **adiskide ederra** (56); **adiskide edo** (12); **adiskide egin** (32); **adiskide egin zen** (9); **adiskide egiten** (5); **adiskide eta** (86); **adiskide gazte** (9); **adiskide gisa** (19); **adiskide guzieri** (5); **adiskide guztiak** (11); **adiskide guztiek** (5); **adiskide handi** (6); **adiskide handia** (14); **adiskide hori** (15); **adiskide horiek** (5); **adiskide hura** (9); **adiskide izan** (31); **adiskide izango** (5); **adiskide izatea** (11); **adiskide izaten** (5); **adiskide leiala** (15); **adiskide leialari** (5); **adiskide maite** (23); **adiskide maite eta** (14); **adiskide maitea** (58); **adiskide maiteak** (10); **adiskide mamia** (5); **adiskide min** (41); **adiskide mina** (47); **adiskide minak** (29); **adiskide minak izan** (5); **adiskide minik** (6); **adiskide on** (17); **adiskide on bat** (5); **adiskide ona** (9); **adiskide onak** (18); **adiskide xarmanta** (7); **adiskide zahar** (14); **adiskide zaharra** (6); **adiskide zaharrak** (9); **adiskide zen** (7); **adiskide zintzoa** (6); **adiskide zituen** (5); **adiskidea da** (8); **adiskidea eta** (16); **adiskidea izan** (5); **adiskidea zen** (9); **adiskideak berak** (5); **adiskideak ere** (9); **adiskideak eta** (24); **adiskideak ez** (15); **adiskideak gara** (7); **adiskideak izan** (8); **ahaide eta adiskide** (7); **ahaide eta adiskideak** (5); **amaren adiskide** (5); **aspaldiko adiskide** (12); **aspaldiko adiskidea** (5); **aspaldiko adiskideak** (12); **azarias adiskidea** (7); **baina adiskide** (9); **baten adiskide** (9); **bere adiskide** (91); **bere adiskidea** (10); **bere adiskideak** (13); **bere adiskidearen** (17); **bere adiskideari** (10); **beste adiskide** (16); **beti adiskide** (5); **bezain adiskide** (5); **bi adiskide** (19); **bi adiskideak** (16); **da adiskide** (8); **elkarren adiskide** (13); **ene adiskide** (26); **ene adiskidea** (8); **ere adiskide** (15); **erregearen adiskide** (6); **eta adiskide** (101); **eta adiskidea** (8); **eta adiskideak** (30); **eta adiskidearen** (8); **eta bere adiskide** (7); **eta haren adiskide** (7); **euskal herriaren adiskideak** (5); **gure adiskide** (41); **gure adiskidea** (9); **gure adiskideak** (10); **hain adiskide** (6); **haren adiskide** (29); **haren adiskidea** (5); **herriaren adiskideak** (5); **jainkoaren adiskide** (11); **lagun eta adiskide** (14); **museoaren adiskideak** (5); **neure adiskide** (9); **neure adiskideari** (5); **nire adiskide** (82); **nire adiskidea** (22); **nire adiskideak** (22); **nire adiskidearen** (13); **nire adiskideari** (8); **oso adiskide** (11); **zen adiskide** (8); **zenbait adiskide** (6); **zeure adiskide** (5); **zion adiskide** (5); **zion adiskideari** (5); **ziren adiskide** (5); **zituen adiskide** (5); **zuen adiskide** (11); **zure adiskide** (19); **zure adiskidea** (19); **zure adiskideak** (12)

adiskideei eta (5); **adiskideek eta** (9); **adiskideek ez** (6); **adiskideen artean** (12); **adiskideen arteko** (16); **adiskideen elkartea** (9); **adiskideen elkarteak** (14); **adiskideen elkarteko** (9); **adiskideetako bat** (6); **adiskideren bat** (8); **adiskiderik ez** (6); **adiskiderik gabe** (9); **adiskiderik minena** (7); **adiskiderik onena** (5); **bere adiskideei** (13); **bere adiskideek** (13); **bere adiskidean** (11); **bere adiskideetariko** (5); **bere adiskiderik** (6); **bi adiskideek** (8); **edo adiskideren** (5); **eta adiskideei** (10); **eta adiskideek** (13); **eta adiskidean** (23); **euskal herriaren adiskidean** (6); **euskalerriaren adiskidean** (10); **herriaren adiskidean** (7); **museoaren adiskidean** (7); **nire adiskiderik** (5); **oteizaren adiskidean** (5)

---

adiskidegiro *izond* adiskidetsua.

Müller-ek enpresa-kontu idatzi zidan esanez berrogeita hamar kiloak igorriak zirela, eta W. konponbide **adiskidegiro** baten ustean zegoela eta abar. Juan Garzia

---

adiskidego *iz* adiskidetasuna.

Adiskidego hura samurregia zen, ikasgrina berak piztua. Imanol Unzurrunzaga

Intz, aize, eguzki... biotz begien igurtzi esan eziña Gezur munduan nekez arkitzen dan **adiskidego** miña. Patziku Perurena

---

adiskidekeria *iz* besteren kaltetan adiskideak faboratzeko joera.

UPNk darabilen jauntxokeria, **adiskidekeria** eta babeskeria familiartekoei laguntzeko egin duen politikaren erakusle da. Berria - Euskal Herria

Giza harremanak mugarik gabe lantzen ditu, hain hispanoa den **adiskidekeria** erabatekoa du, beti dago botere politikoaren ondoan eta harreman horiek bere onerako erabiltzen ditu. Berria - Kirola

Egia da, propaganda larregi dabil bazterretatik; marketingak, **adiskidekeriak** eta taldetxoek zabal-zabalik kurritzen dituzte gure literatur bideak. Berria - Kultura

---

adiskideki *adlag* adiskidetasunez, adiskideen eran.

Taldearengana lasterka eta klarinetea jotzen zuena **adiskideki** besarkatu zuen Kastelak. Itxaro Borda

Adiskideki errezibitu zuten eta, premiazkoak ziren seguritate neurriak zaintzearren, Ivryra zihoan metroan satortu ziren. Itxaro Borda

Batere Ibuztiko ostaler jaun andereeri afrunturik egin gabe (arras sanoki eta **adiskideki** hartu eta artatu baigituzte beti hainbeste urtez), erran behar dugu halere guk jaten ginuena baino ainitzez gorago eta barnago zoala jaun horiekilako solasa. Herria

adiskidekiro *adlag* adiskideki.

Legendunekin eta zakurrekin bizi izan da, poliziek sarritxo jo dute, aldamenean jendea sexu harremanetan eta hiltzen ikusi du, eta, hamahiru urte bakarrik eduki arren, ilunkeran egunero Curzon Parkera beren gorputzak saltzera doazen emakumeek **adiskidekiro** agurtzen dute. Gotzon Garate

adiskidekor *izond* adiskideari edo adiskidetasunari dagokiona.

Burua jiratu zuen Eusebiak, eta konplizitate-keinuak "jakina" moduko mezua bidali zion aurpegiko giharrek eginiko morse **adiskidekor** batez-. Josu Landa

Ez dute itxura **adiskidekorrik** orain. Graxi ahizpa txikiaren lasaitzeko saio **adiskidekorretan** zinpurtzen zen, ondoriorik gabe. Oskar Arana

Haurrek begirune **adiskidekorrik** ez zioten eskaintzen. Itxaro Borda

Hortako, gizon indartsu-indartsu horietakoa izan behar zuen: ez zirudien artean haserre; alderantziz, atsegin eta **adiskidekor**. Juan Garzia

adiskidetasun *(ETCn **4.573** agerraldi; orobat **adixkidetasun** g.er.)* **1** *iz* pertsonak elkarrengana duten begikotasun edo atxikimendua, odolean edo sexuan oinarritzen ez dena. ik **adiskidantza**.

Haurtzaro eta gaztaroko denbora magikoa bukatu, eta bi pertsona heldu gelditu zituan, harreman korapilotsu eta misteriotsu baten lotailuez estekaturik, hizkera arruntean **adiskidetasun** deitzen zaion harremanaz lotuta. Xabier Olarra

Adiskidetasuna, nire ustez [...] bi gizakien artean izan daitekeen harremanik nobleena duk. Xabier Olarra

Adiskidetasuna beste zerbait duk, noski, ez dik zerikusirik sexu bereko pertsonekiko sentitzen den erakarpen desbideratu hori asetzeko grinarekin. Xabier Olarra

Batzuetan pentsatzen diat... **adiskidetasuna** dela bizitzako harremanik barnekoena... eta horregatik agertzen dela hain bakan. Xabier Olarra

Beraiekin lehendik genituen **adiskidetasuna** eta gudu-lagun izateko hitzarmena berritzera. Elizen arteko biblia

Eta adiskide izan ez bagina, ni ez ninduan joango biharamunean hire etxera, sekula gonbidatu ez ninduan etxe hartara, non gordetzen huen heure sekretua, gure **adiskidetasuna** pozoitu zuen sekretu ulertezin hura. Xabier Olarra

Obra horrek ederto islatzen ditu gure lotura emozionalak, ahalmenak eta mugak, emakumeen arteko **adiskidetasunaren** balioa. Ana Urkiza

Gizon arteko **adiskidetasunaren** zentzu sakona altruismoa duk, hain zuzen ere: ez dugula bestea sakrifikatzerik nahi, ez dugula haren samurtasuna nahi, ez dugula ezertxo ere nahi, hitzik gabeko itun bati eustea besterik. Xabier Olarra

Bion itun mutu hark sendotu egin zuen gure **adiskidetasuna**. Anjel Lertxundi

Ez nion, haatik, uko egin nire maistrarekiko **adiskidetasunari**. Juan Kruz Igerabide

Augusteren **adiskidetasuna** ere galdu zuen. Karlos Zabala

Tigreak, elefanteak, krokodiloak, kobrak eta ziminoak gizakiekin **adiskidetasunean** bizi diren lurraldea. Gotzon Garate

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Maitasun berriak **adiskidetasun** zaharren kalte direlako topikoa gezurtatzeko egokiera genuen eskura. Aingeru Epaltza

Keinu isil eta hitz doiez ehundutako **adiskidetasun** trinkoa gorpuztu baitzen bi emakumeen artean. Anjel Lertxundi

Jendeak **adiskidetasun** desinteresatua irrikatzen du gehien. Xabier Olarra

Halako adeitasun eta **adiskidetasun** gizabidetsuegia erakusten zuen bere maneretan. Jose Morales

Adiskidetasun anaikorraren bide eztian sartuak ginelako. Aingeru Epaltza

Ene seme, ez zaitzala inolako burutaziok kezka; ziur egon, maiteen ditudanen artean oso maite zaitudala, eta oso gustura eskaintzen dizudala nire **adiskidetasun** bihotzekoa. Askoren artean

Autistarentzat, baina, **adiskidetasun** benetakoa lortzea izan daiteke zailena, besteak beren bestelakotasunagatik nahiz beren gogamenengatik estimatzea. Xabier Olarra

Geroztik, giza mailako eta espirituzko **adiskidetasun** zoragarria biziko dute Frantziskok eta Klarak. Askoren artean

Ezin zion bihotza zabaldu, ezin zuen fitsik kontatu, ezin zion iruzurra beste ordainik itzuli **adiskidetasun** huts garbia eskaintzen zion emakume hari. Anjel Lertxundi

Hala bada, haurtzaroa elkarrekin igaro zuten, anaitasunezko **adiskidetasunean** baturik. Patxi Zubizarreta

Adiskidetasun platonikoa, besterik gabeko **adiskidetasuna**, ukiturik gabeko **adiskidetasuna**, dardararik gabeko **adiskidetasuna**. Lourdes Oñederra

Gure egiazko **adiskidetasunaren** seinale argia.Gerrak lapurra gauean bezala etortzea du maite; betiereko **adiskidetasunaren** promesek iluna dakarte. Imanol Unzurrunzaga

Gure Zientziaren Eliza hura gure isilpeko **adiskidetasunari** izena emaiteko modu bat izan zela. Joan Mari Irigoien

Betiko **adiskidetasuna** eta sekula berriz ez apartatzea agindu zioten elkarri. Koro Navarro

Artean ez zuten aparteko **adiskidetasunik**, baina bai bataren eta bai bestearen biziera santuaren entzutea aski zen bi gizonak maitasunean elkartzeko. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakumezko auzokideekin izanak zituen **adiskidetasun** loturak aspaldian hautsiak ziren. Patxi Zubizarreta

Emakumeentzat oso desatsegina baita gizonezkoon joera hori: berek **adiskidetasun** maila soilean mantendu nahi luketen harremana guk harantzago eraman nahi izatea. Ramon Saizarbitoria

Ongi hartzen omen zituzten berengana biltzen zirenak eta laguntasun bila joaten zitzaizkienei **adiskidetasun**-hitza ematen omen zieten. Elizen arteko biblia

Esperientziak esaten zidan, hasieran irekien diren emakumeak izan ohi direla gero eragozpen handienak ditutenak harreman sakonetara iristeko; eta frustraturik sentitzen direla, irainduta, gizonezkoek gaizki interpretatzen dituztelako beren **adiskidetasun** adierazpenak. Ramon Saizarbitoria

Zakurrak eskatzen duen gauza bakarra: maitasun pixka bat, **adiskidetasun** agiritxo batzuk eta jan hondarrak. Gotzon Garate

Esparta eta beste zenbait hiritara ere **adiskidetasun**-gutunak bidali zituen. Elizen arteko biblia

Poliziek **adiskidetasun** zafladak eman dizkiete hiltzaileei bizkarrean. Gotzon Garate

Deliberaturik nengoen Herbert bakarrik utzi eta biharamun eguerdian itzulerako hegaldia hartzera, **adiskidetasun**-kontuak gorabehera. Joxe Austin Arrieta

Egoera politikorik mehatxugarriena nazioarteko **adiskidetasun** aldia da. Xabier Olarra

Lehengo solasari heldu zioten ostera ere, aurreko **adiskidetasun** giro berean. Koro Navarro

Bazihoan, bazen garaia, ez zuen **adiskidetasun** erakustaldirik egin batere, geratzeko motiborik izan ez zezan. Karlos Zabala

Zuekin, hil ere egin daiteke edonor, esan nien, hil egin daiteke, zuek konturatu ere egin gabe, **adiskidetasun**-arrastorik ere ez zuekin. Joxe Austin Arrieta

Bertan habia zuen zapelatz batek **adiskidetasun**-itun harrigarria egin zuen santuarekin: gauero, santuak Jauna gorestera jaikitzeko ohitura zuen orduan, zapelatzak bere kantuz eta hotsez abisatzen zion. Askoren artean

Fereka hori plazer zilegi bilakatu zen, **adiskidetasun** seinale, kolosoak haurren lañotasunarekin onartzen zuena. Karlos Zabala

Zurekiko eta zureekiko konfidantza eta **adiskidetasun** erakusgarririk sutsuenekin. Ramon Etxezarreta

4 ***adiskidetasunezko*** *izlag*

Lebigre andre ederrak eta Quenu andre ederrak **adiskidetasunezko** agur bat trukatu zuten. Karlos Zabala

Ongi zekien Frantziskok, tratu onak bakarrik, maitasunezko eta **adiskidetasunezko** tratuak aldatzen duela pertsona. Askoren artean

Nirekin, berdinen arteko tratu ia **adiskidetasunezkoa** izan omen zuen. Juan Garzia

Momentu hartan ez zitzaizkidan axola harreman pertsonalak: ez **adiskidetasunezkoak**, eta are gutxiago maitasunezkoak. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adiskidetasun eta (9); **adiskidetasun handia** (6); **adiskidetasun harremana** (3); **adiskidetasun harremanak** (3); **adiskidetasun hori** (6); **adiskidetasun horrek** (3);

adiskidetasun itun (3); **adiskidetasuna baino** (3); **adiskidetasuna da** (5); **adiskidetasuna eta** (24); **adiskidetasunak eta** (3); **arteko adiskidetasun** (7); **arteko adiskidetasuna** (23); **arteko adiskidetasunak** (4); **arteko adiskidetasunaren** (7); **arteko adiskidetasunari** (4); **bere adiskidetasuna** (3); **beren adiskidetasuna** (4); **bien arteko adiskidetasuna** (4); **da adiskidetasuna** (6); **eta adiskidetasun** (19); **eta adiskidetasuna** (14); **eta adiskidetasunaren** (3); **eta adiskidetasunean** (3); **eta adiskidetasunera** (3); **eta adiskidetasunez** (4); **gabeko adiskidetasuna** (4); **gure adiskidetasuna** (11); **gure adiskidetasunaren** (4); **haren adiskidetasuna** (3); **nire adiskidetasuna** (4); **zure adiskidetasun** (3); **zure adiskidetasuna** (3)

---

adiskidetsu **1** *izond* adiskidetasuna adierazten duena, adiskidetasunean oinarritua.

Eskerrak gizaseme jator, **adiskidetsu** eta aldarte onekoa den. Gotzon Garate

Emakume irribarretsu eta **adiskidetsu** haiek ikusi eta geure haurtzaroaz oroitzen nintzen. Gotzon Garate

Bidea erakutsi zidan keinu **adiskidetsu** batez. barra gainetik egunkari bat hartuta, irakurtzeko plantak egin zituen, barman **adiskidetsuaren** arreta gogaikarriaz libratzeko. Alberto Ladron Arana

Aspertuta eta bakarrik zaudenean musu **adiskidetsua** zeinek emango? Gotzon Garate

Tonu **adiskidetsu** baina goitar eta dibertigarri batean. Xabier Olarra

Eta iraindu egin behar al dugu gizona, bisita **adiskidetsu** bat egitera datorkigunean? Irene Aldasoro

Hizketa **adiskidetsu** bat edo da, nolabait esan, zentzu onaren bidetik egina. Irene Aldasoro

Eta mutilaren arrantza berri batekin amaitutzat jo zen elkarrizketa **adiskidetsu** horren beste kapitulu bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Edozein arrazatako zakurra, ongi heziz gero, goxo eta **adiskidetsu** izan liteke. Gotzon Garate

Gizon-ahots atsegin eta **adiskidetsua** zeukan. Urtzi Urrutikoetxea

Irriño zabalagoarekin hortzak azaldu zitzaizkion, zuri-zuriak, ezpain gorri **adiskidetsuek** koroaturik. Gotzon Garate

Ivors andereñoak eskutik heldu zion, bero estutzen zuela, eta tonu samur **adiskidetsuan** esan zion: [...]. Irene Aldasoro

Uste dut Herberti ez zitzaiola oso **adiskidetsua** iruditu nire ezer-ez pentsatze hura. Joxe Austin Arrieta

Egoeraren latzagatik ere, eroso sentitzen nintzen whiskyak gure artera ekarritako giro bare, kasik **adiskidetsuan**. Aingeru Epaltza

Potzoloren bozak jite **adiskidetsuagoa** hartu zuen. Aingeru Epaltza

-Ni ez nintzateke hain **adiskidetsua** izango hauekin, Hagrid -esan zion Filchek hotz eta motz-. Iñaki Mendiguren

-Ez al duzu kantatu behar? -galdetu zion **adiskidetsua** izan nahi zuen tonu garratz batez. Anjel Lertxundi

2 (adizlagun gisa)

-Zu zara, ama Chantemesse? -esan zion **adiskidetsu**. Karlos Zabala

Osaba Vernonek **adiskidetsu** jo zuen Dudley bere sorbalda mamitsuan. Iñaki Mendiguren

Martin eta Briones, zaldi gainean, **adiskidetsu** joan ziren hizketan. Koro Navarro

Sinets zenezake ezen haren eta nire artean herenegun gertatu zenaren ondoren, atzo goizean **adiskidetsu** bereizi ginen ondoren. Jon Muñoz

-Presatua haiz noski -orain arte bezain **adiskidetsu**-. Aingeru Epaltza

Langile ona, nagusiek aintzakotzat zeukatena, etxean emaztearekin eta bere hiru seme-alabekin goxo, **adiskidetsu** eta gizonki jokatzen zuena. Gotzon Garate

Gu biok ere barrez hasi ginen eta jarraian musu eman genion denok elkarri berriro, **adiskidetsu** eta bizipoz handiz. Aitor Arana

Ondorio on bat gutxienez ekarri zuen oihulariak: bazirudien, Hermioneren ustez, nahikoa zigor jasan zutela jada, eta haiekin oso **adiskidetsu** jokatzen hasi zen berriro. Iñaki Mendiguren

Bat-batean **adiskidetsuago** agertu zitzaidan. Aingeru Epaltza

Avigdorrek, sekula baino **adiskidetsuago**, bihotza zabaldu zion Ansheli. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adiskidetsu bat (5); **adiskidetsu batez** (5); **adiskidetsu eta** (7); **eta adiskidetsu** (5); **eta adiskidetsua** (4); **keinu adiskidetsu** (3)

---

adiskidetsuki *adlag* era adikidetsuan.

Nozdriovek hika egiten zien poliziaburuari eta prokuradoreari ere, eta **adiskidetsuki** mintzatzen zitzaien. Jose Morales

Ordu erdi geroago **adiskidetsuki** hitz egiten ari ziren berriz ere, gertatutakoa ahazturik. Jose Morales

Adiskidetsuki tratatzen zuen, eta honela esaten zion gainera: "Gizatxar gaiztoa hi!, inoiz ez haiz nire etxera etortzen". Jose Morales

Eta nora joateko asmoa duzue? -galdetu zion Kostanjoglok, **adiskidetsuki**, Txitxikovi. Jose Morales

---

adiskidetu *(orobat **adixkidetu** g.er.)* adiskide(tu), adiskidetzen **1** da *ad* haserreturik edo etsaiturik zeudenak adiskide bihurtu.

Entzun bitza zuen eskariak eta **adiskidetu** bedi zuekin. Elizen arteko biblia

Egun hartan, **adiskidetu** egin ziren Herodes eta Pilato, etsai baitziren lehen. Elizen arteko biblia

Izango ote luke aukera hoberik bere nagusiarekin **adiskidetzeko**, gure mutilei lepoa moztuz baino? Elizen arteko biblia

Hau guztia Jainkoarengandik dator, Kristoren bitartez berekin **adiskidetu** baikaitu eta **adiskidetzeko** zerbitzua gure esku utzi du. Elizen arteko biblia

Jaun ahalguztidunak, haserretuta, eskutik utzia bazuen ere, berriro **adiskidetu** ondoren, bere edertasun osoan berriztatu zuen. Elizen arteko biblia

Mundu honetan edozer lor daiteke, gauza bat izan ezik: bisita ez itzultzeagatik etsaitu diren bi dama **adiskidetzea**. Jose Morales

Honela, lehenengo aitaren bekatuagatik ilunpearen menpean kateetan gintuen printzearen eskutik gu atera eta Aita Jainkoarekin **adiskidetzeko**. Askoren artean

Gero, otoitz egin zuten elkarrekin, Jaun errukitsuari bere zerbitzariekin erabat **adiskidetzeko** eskatuz. Elizen arteko biblia

Ni ahalegintzen naiz **adiskidetzen**, baina berak beti bezala jarraitzen du, erantzun txarra besterik ez dit ematen. Bernardo Atxaga

Laster **adiskidetzen** ginen, hori ere egia da, baina ez genituen inoiz ere liskarraren nondik norakoak argitzen. Anjel Lertxundi

Aurkitu egin dugu, denok ere, mesfidantza eta antipatia gaizto guztien azpian, batzen eta senidetzen gaituen hitza, eta esan ere esan diogu geure buruari bazela **adiskidetzeko** ordua, bai behintzat **adiskidetzen** hastekoa. Bernardo Atxaga

Honela, lehenengo aitaren bekatuagatik ilunpearen menpean kateetan gintuen printzearen eskutik gu atera eta Aita Jainkoarekin **adiskidetzeko**. Askoren artean

Erabaki honek **adiskidetzen** zaitu zeure antzeko ardurak dituztenekin. Berria - Kultura

2 irud/hed

Erlijio lehiakideak beren artean **adiskidetu** egin litezke elkarren ondoan bizitzeko, mundu sinikoan eta indikoan bezala. Iñaki Mendiguren

Paranoia horrexek **adiskidetzen** du bere zoriarekin, neguak gizona etxearekin **adiskidetzen** zuen gisan. Iñaki Segurola

Sandro mendian ikusteak munduarekin **adiskidetzen** zintuen. Juan Garzia

Galminak bizimindu egiten gaitu, eta biziarazten, urduritzen, tirtiritzen, xaxpikitzen, ezinegon gozo batez janzten, asetzerik izan ez dezakeen gose-egarri batekin **adiskidetzen**..., eta hori ez da komeni nonbait, eta horixe da dena. Iñaki Segurola

Zer egin behar lukete orduan bihotzak eta buruak elkarrekin **adiskidetzeko**, teologiaren forman plataforma komuna eraikitzeko porrot historikoaren argitan? Iñaki Mendiguren

Giza generoarekin **adiskidetzen** zaituzten nobela horietako bat da. Berria - Kultura

3 du *ad*

Benetako bakean **adiskidetzen** zituen, lehen, Kristorengandik aldenduta, salbamenetik urruti aurkitzen zirenak. Askoren artean

Bi herriak Jainkoarekin **adiskidetu** ditu eta gurutzeko heriotzaren bidez gorputz bakar batean elkartu, beraien arteko etsaigoa suntsituz. Elizen arteko biblia

Jainkoa da Kristoren bitartez mundua berekin **adiskidetu** duena. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adiskidetu egin (10); **adiskidetu egin ziren** (5); **adiskidetu eta** (4); **adiskidetu ginen** (5); **adiskidetu nahi** (3); **adiskidetu ondoren** (3); **adiskidetu zen** (4); **adiskidetu ziren** (6); **adiskidetzea eta** (7); **adiskidetzea ez** (4); **adiskidetzea ez da** (3); **adiskidetzea lortu** (5); **adiskidetzearen alde** (4); **adiskidetzearen aldeko** (5); **arteko adiskidetzea** (5); **berehala adiskidetu** (4); **berekin adiskidetu** (3); **berriro adiskidetu** (3); **eta adiskidetu** (4); **eta adiskidetzea** (15); **eta adiskidetzearen** (9); **eta adiskidetzearen aldeko** (3); **eta adiskidetzeko** (5); **gizartearen adiskidetzea** (4); **jainkoarekin adiskidetu** (3)

---

adiskidetza *(orobat **adixkidetza** g.er.)* adiskidetasuna.

Erakunde palestinar guztien arteko elkarlana eta **adiskidetza** bilatzen dugu. Berria - Mundua

Bi printzeak Rhin ibaiaren erdian kokatutako ontzi batean bildu ziren, eta **adiskidetza** betikoa zin egin zuten. Iñaki Iñurrieta

Wicked-ek bi sorginen arteko **adiskidetza** harremana kontatzen du. Berria - Kultura

Su-eten iraunkorrak itxaropenerako, elkarbizitzarako, **adiskidetzarako** eta normalizazio politikorako atea ireki du Euskadin. Berria - Harian

Alderdi politikook elkarbizitzari, **adiskidetzari** eta normalizazio politikoari buruz eztabaidatu ahal izango dugu, euskal hiritarrek askatasunez adierazitako borondatea eta erabakia errespetatuta. Berria - Harian

Bakearen eta **adiskidetzaren** kultura zabaltzen duten hiriei saria ematen die UNESCOk, 1996tik. Berria - Euskal Herria

---

adiskidetzaile *izlag* haserreturik daudenak adiskidetzen dituena. ik **baketzaile**.

Gure gizartean irmoki sustraituta dauden ideiak dira eta, bere zentzu bakezale, **adiskidetzaile** eta inguratzaileagatik bake-bidean eta bizikidetzaren normalizazioan izugarrizko ahalmena dute. Berria - Euskal Herria

---

adiskidetze *(orobat **adixkidetza** g.er.)* **1** *iz* adiskide bihurtzea.

Pobre eta baztertuekin bat egin zuen, **adiskidetzea** eta bakea predikatu zituen, guztienganako anaitasuna eta gizakiaren eta naturaren arteko solidaritatea bizi izan zituen. Askoren artean

Adiskidetzea lortu nahi izatekotan, ahalegin bateratu baten bidez bilatu beharko lukete alderdiek. Iñaki Mendiguren

Aztertu dugu ea zer proba egon ote zitekeen, bai alienazioarena eta bai **adiskidetzearena**, Mendebaldeko Gizartearen baitan, hau kristau-aroko hogeigarren mendearen erdian zegoen bezala. Iñaki Mendiguren

Bi egi mota horien **adiskidetze** posiblea, teologia deituriko buru-diziplina berriaren arabera, hitzezkoa baino ez zen izan. Iñaki Mendiguren

Bi ideal gatazkatsu horien artean benetako **adiskidetze** bakarra anaitasunaren ideal bitartekarian aurkitzen zen. Iñaki Mendiguren

Lehenik, **adiskidetze**-indarrek indartsuagoak ziruditen, Gizarte Helenikoan bere historian zegokion fasean jardundako indarrek baino. Iñaki Mendiguren

2 *adiskidetze ekitaldi* *(corpusean ez dago; ETCn **71** agerraldi)*

Barriuso presidentea Oviedorekin bilduko da gaur Gurrutxagaren zorra kitatzeko **adiskidetze ekitaldi** batean. ETC-prentsa

Arzalluz eta Mayor Orejaren arteko **adiskidetze ekitaldia** akordiorik gabe gauzatu da. ETC-prentsa

Geroago, Auzitegi Militarrean, Loiolako Kuartelean, **adiskidetze-ekitaldirako** deitu zidaten. ETC-prentsa

Adiskidetze ekitaldia lortu genuen aurreko asteko ostegunean, epaiketan. ETC-prentsa

Eta bakea zin egiten dute **adiskidetze ekitaldi** batean, biarnoarrek zerga ordaindu nahi ez izateagatik XIV. mendean izandako liskarren ondoren. ETC-prentsa

Adiskidetze ekitaldia izan zuten bi aldeek goizean, eta, akordiorik erdietsi ez zutenez, elkarteak ez du bazter utziko salaketa jartzeko asmoa. ETC-prentsa

Adiskidetze ekitaldi sinbolikoa ere egin zen, XVII. mendean euskaldunen aurka onartutako legea XXI. mendean bertan behera uzteko. ETC-prentsa

Nafarroako Auzitegi Nagusiko plazan zeuden ehun bat lagunen babesarekin joan zen atzo Urtasun **adiskidetze ekitaldira**, alboan bere abokatua zuela. ETC-prentsa

Etzi **adiskidetze ekitaldia** izango da. ETC-prentsa

Asteazkenean auzibidearen lehen urratsa izango da, **adiskidetze ekitaldia**. ETC-prentsa

Bigarrenez ezkondutako ezkontideak notario-aktan edo **adiskidetze-ekitaldian** agerrarazi behar du halako ondasunik ez dagoela, interesdunei edo horien legebidezko ordezkariei jakinarazpena edo zitazioa eginez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kereilaren gaia bada alderdiak hala eskatuta bakarrik pertsegi daitekeen delitua, bortxaketa- edo bahiketa-delitua izan ezik, kereila-jartzailearen eta kereilapekoaren artean **adiskidetze-ekitaldia** egin dela edo hori egiteko ahaleginak egin direla egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adiskidetze-ekitaldiaren aurretik, halakorik bada, eta epaiketaren aurretik formulatu eta erabaki beharko da akzioak eta jarduketak metatzea, non eta proposamena ez den errekonbentzio bidez egiten. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alderdiak **adiskidetze-ekitaldirako** behar bezala zitatuak egonik, adiskidetzea eskatu duena agertzen ez bada eta arrazoi zuzenik alegatzen ez badu, adiskidetze-orrian ez aurkeztutzat joko da eta jardundako guztia artxibatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Salaketa jarri baino lehen, ezinbesteko baldintza da salatu nahi dugun pertsonarekin **adiskidetze-ekitaldi** bat egitea edo, gutxienez, egiten saiatu izana; ez da beraz, zertan adostasuna eman behar, baina bai saiatu, behintzat. ETC-entziklopedia

3 *adiskidetze idazki* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Bake-epailearen aurrean adiskidetzea sustatu nahi duenak **adiskidetze-idazkia** aurkeztu behar du bertan. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *adiskidetze orri* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Bake-epailearen aurrean adiskidetzea sustatu nahi duenak **adiskidetze-orria** aurkeztu behar du bertan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azken kasu horretan, etorkizunean emango den sententzia **adiskidetze-orrian** jasotako uziarekin bat badator, epai-organoak ausarkeria edo fede gaiztoa atzemanez, 600 euro arteko isun bat ezar dezake. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adiskidetze-orri honen helburua da enpresak abenikoa egitea honi buruz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adiskidetze-orri honen helburua da enpresak abenikoa egitea honi buruz: ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *adiskidetzeko ekitaldi* *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)*

Geldiarazpen zibila gertatzen da, halaber, **adiskidetzeko ekitaldiaren** ondorioz, baldin eta, ekitaldi hori egin eta bi hilabeteko epean, epaileari demanda aurkezten bazaio auzipeko gauzaren edukitza edo jabariari buruz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adiskidetze atalari eskatzen diot idazki hau eta beronen kopiak aurkeztutzat eman eta onar ditzala, eta **adiskidetzeko ekitaldia** egiteko agindu eta alderdiak dei ditzala, horretarako zehazten den egun eta orduan ager daitezen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikusmin handia piztu du **adiskidetzeko ekitaldi** honek, eta atzo ere jende eta kazetari asko bildu ziren Donostiako epaitegi inguruan. ETC-prentsa

Horregatik ezin izan zuen joan atzo Durangoko lehen auzialdiko epaitegira, Iñaki Ezkerrarekin zuen **adiskidetzeko ekitaldira**. ETC-prentsa

Udan, epaiketa saihesteko asmoz, Elizak eta Garisoaingo ordezkariek **adiskidetzeko ekitaldi** bat egin zuten. ETC-prentsa

Hilaren 17ra arte, gutxienez, itxaronarazi egin nahi dio, orduan izango baita Iruñean **adiskidetzeko ekitaldia**. ETC-prentsa

Otsailaren 18an, **adiskidetzeko ekitaldia** egin zuten bi aldeek: Goirizelaiak eta bi hedabideen ordezkariek ez zuten onartu eskaria. ETC-prentsa

6 ***adiskidetzeko orri*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Adiskidetzeko orri honen helburua da enpresak abenikoa egitea honi buruz. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
adiskidetze aldera (3); **adiskidetze nazionalerako** (6)
adiskidetzea ez da (3); **adiskidetzea lortu** (5); **arteko adiskidetzea** (5); **gizartearen adiskidetzea** (4)
adiskidetzearen alde (4)
adiskidetzeari buruzko (3)

---

adiskidezko *izlag* adiskidetasunezkoa.

Hain justuki astelehenarekin izan gara gure **adiskidezko** itzuliaren egiten, hobeki ulertzeko edo konprenitzeko gisan nolakoa izan zitekeen egun dohakabe haren giroa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

aditasun *iz* adi dagoenaren egoera, arreta, ohartasuna.

Berak esan zezakeenari audientziak **aditasun** pitin bat behintzat emango ziolakoan hitz egin zuen New Yorken. Edorta Jimenez

Jarduera honetan barrena xehetasunari eskaini diot nire **aditasun** handiena eta zera esatera ausartzen naiz: hemen konpondu ez den edo bere konponketarako giltza bederen eman ez den arazo metafisiko bat bera ere ez dagoela. Ibon Uribarri

Haren begirada, **aditasun** miresgarri hura galdurik, ia ameslari bilakatzen zen. Monika Etxebarria

---

aditibo *iz* jaki edo kideko bati, hura gustagarriagoa egiteko, gehitzen zaion gaia.

Izozkiak ere hor daude, batzuek ez daukate inongo **aditiborik** eta hasierako freskotasuna ikusgarri mantentzen dute. Berria - Euskal Herria

Geroz eta elikagai pertsonalizatu gehiago eta zehatzagoak (tamainak, itxurak, ukituak, aurkezpenak, **aditiboak**, usainak, ontziak...) izango ditugu eskura, erosteko ahalmena gora joan ahala. Edorta Agirre

Aditiboak edo gehigarriak. Edorta Agirre

---

aditu[1], adi(tu), aditzen *(orobat **aitu** g.er. eta **aittu** g.er.)* **1** du *ad* ulertu; entzun.

Debekatu egiten dizut joatea, **aditu** didazu? Itziar Otegi

Jende askoren topaleku denez, istorio asko **aditzeko** parada izaten dugu, belarriak erne eta ez argizariz beteak izanez gero. Felipe Juaristi

Euriaren atabal kolpeak **aditzen** ziren leihoetan, ardien marrakak, antzaren karranka, pulinda baten uhuru hantua, haurren hatsartze urria, koilareen asotsa kikeren hegietan, bi eztul eta loiroan geratu buhame-saldoaren karkaila uherrak. Itxaro Borda

Karmeleren hitzak **aditu** bezain laster, amaren keinuak gogorretik bigunera eta ekaitzetik barera egin zuen, apurka-apurka irri bat bihurtzeraino, interjekzio bat haren ezpainetan: "A! ". Joan Mari Irigoien

Noizean behin, honelako esaldiren bat **aditzen** zion: "Fama adiskide aldakorra duzu, Harry" edo "Ospea ospetsu bezala jokatzea da, gogoratu hori". Iñaki Mendiguren

Gainera, nire taldeko bertze au-pair batzuei **adituta**, fite endelegatu nuen zein zorionekoa nintzen Corytarrekin. Xabier Montoia

-Egia esan, ez dakit asmatuko dudan; bidean nire pentsamenduekin eta zuri **adituz** etorri naiz, despistatuta. Joxean Sagaztizabal

"Lope de Iraurgi", erantzuten diote; "Baskoa da", eransten du bigarrenak; "Kontrabandoan aritzen omen da", **aditu** da. Felipe Juaristi

Herria esnatzen denean, goizaldean, idien marruak **aditzen** dira. Koro Navarro

Takateko bat **aditu** zen, eztanda txiki baina bere sikuan amorru bizikoa, potoa zati-zati egin zen. Juan Garzia

Holakorik haatik ez nuen behin ere **aditua**! Janbattitt Dirassar

Joan Bataiatzailea ez zen eroa Kaligula bezala, baina tonto samarra zen, zeren garrasika ibiltzen baitzen basamortuan, inork **aditu** ezin zion tokian. Bernardo Atxaga

Ez al duzu **aditu**, Hagit-en seme Adoniasek bere burua errege izendatu duela, David gure jaunak deus ere jakin gabe? Elizen arteko biblia

Familiaren kontsolamendu eskariari erantzun dut ele xuriz, ene ahotsaren oihartzun kiretsa **aditzen** nuela. Piarres Aintziart

Dena, baina ezer gehiago ez; **aditu**? Eskarne Mujika

Lehen planoan ageri den liskarraren atzetik, elkarrekiko jakin-nahi bera eta gaizki-ulertu berberak daude, elkar **aditzeko** desira erreal bat ezkutaturik. Joxan Elosegi

Apez polones batek eta aleman batek ez dute aise elgar **aditzen**. Marzel Etxehandi

Zarata handi batek harrapatuta baninduka bezala ibili nintzen goiz guztian, arreta ganorazko ezertan tajutu gabe eta gainerakoen hitzak **aditu** ezinik. Hasier Etxeberria

Ez dira aspertuko zure belarriak aingeruen soinu eta kanta gozoak **aditzez**, eta milioika joango zaizkizu urteak, denbora apur bat baizik ez balira bezala. Anjel Lertxundi

Ez zen entzuten zuen lehen aldia, auzoan arrunta zen irratia ozen jarritako musika **aditzea**. Urtzi Urrutikoetxea

Sentimenean ematen zaigun anizkunkia determinatua den zerbait gisa, hau da, objektu gisa **aditzen** dugu. Ibon Uribarri

Italiana garbitzen ari zen telefono hotsa **aditu** zuenean. Unai Iturriaga

Eta haren bihotzak mintzorik **aditzen** ez duenean zer adieraziko du bada? Jon Muñoz

Galtziako laborariek lepoa moztu ziotela ere **aditu** zuten. Pablo Sastre

Aurrera zihoan, umeteriaren oihuak entzun gabe eta goialdetik igarotzen ziren trenen dardara txundigarria **aditu** gabe. Lopez de Arana

Zaldunek ez zituzten ongi **aditu** damaren hitzak, gazteluko jaunari ekin baitzioten, ezpata kentzeko. Juan Kruz Igerabide

Aditu dut bere izena noiz edo noiz, baina orain ez datorkit gogora - jaikitzeko eta musu emateko keinua egin zuen Pilar izeneko ahizpa nagusiak. Aitor Arana

Euskal Herriaren erdigunean dago, eta bazterretako hizkerak baino -bizkaitarra eta zuberotarra- errazago **aditzen** da erdigunekoa. Koldo Zuazo

Taibele bere istorioa kontatzen **aditu** eta entzutera gelditu zen. Koro Navarro

Hark zirkulua nola estutzen zen **aditu** zuen. Patxi Zubizarreta

Herrian izango zuen entzuna, ez zion halakorik inoiz **aditu** aitari, ez eta osabari ere. Joxemari Urteaga

Harrabots burrunbatsu bat **aditu** dut belarrietan, eta, hurrengo, ezertxo ere ez. Mirentxu Larrañaga

Maleta eskuan hartu eta pauso bat emanen duzu aurrera, tren hotsik **aditzen** ez den arren. Joseba Sarrionandia

Aire kondizionatuaren ufakada epel erregularrak baizik ez zituen **aditzen**. Ramuntxo Etxeberri

Gutxienez ehun eta hirurogeita zazpi urte izan behar zituen emakume batek **aditu** ez zuen aholku bat eman zion eta Lucasek, ezer ulertu ez bazuen ere, esan zion "zeu ere irtengo zara egunen batean". Unai Elorriaga

Aditu zituzten Saulek eta israeldar guztiek filistearraren hitz hauek, eta beldurtu egin ziren. Jose Antonio Mujika

Neska gehienak, ez denak, eta mutiletako batzuk dira txokolate konturik **aditu** nahi ez dutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Zera erotizatuko hau horrek! -**aditu** zuen Gabinek Xankaporen protesta, sarrerako atea itxi eta pasillo laburrean hiru urrats eman bitartean. Iñaki Iñurrieta

Ondo pasatu zuten gau hartan, edo hala oroitzen du Aniak une hauetan, melodiaren erritmo geldoa **aditzean**. Iban Zaldua

2 du *ad* usaindu.

Lurringaien katearen zuzendariak belauniko jarrarazi ninduen bere aurrean eta lanari zintzo ekiten ari nintzaion bitartean ametsetan hartu nituen edertasun-gai haiek, nire usainaren gozoa **adituz** eta nire larruazalaren labaindura sentituz. Joxan Elosegi

Kraskatu egin zitzaion ahotsa, eta negarrez hasiko zela iruditu zitzaidan; halaxe egon ginen une luze batez, sukaldeko kean bildurik, eltzetik zetorren belar-usaina **aditzen** nuela, zer belar ote zen ez banekien ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Bacon-i dagokionez, "bere zerbitzarietariko inor ez zen ausartzen agertzera haren aurrera Espainiako larruzko botarik gabe; ezen berehala **aditzen** zuen zekor-larruaren usaina, eta desatsegin baitzitzaion". Juan Garzia

Leihoa zabaltzera jaiki beharko nuke sikiera: kedarraren usaina **aditzen** da, ustelarena, itxiarena. Eskarne Mujika

Lurraren usain hezea **aditzen** zen. Anjel Lertxundi

-Amak esaten dik beti **aditzen** dela neskameen usaina -usain egin genien maindireei-. Koro Navarro

Haragi fresko eta odoltsuaren usainaren presentzia hurbila **aditzen** duten tiburoien gisa, ontziaren inguruan aritzen zen igerian gero eta zirkulu estuagoetan, harik eta zangoez edo besoez metalezko kasko gogorra jo eta berriro kubiertaren gainera igotzen zen arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Txabola txiki hartan ere -sutondotik hain hurre egonda haren soineko berotuaren usaina **aditu** arren-, haren begiek ez zuten batere argitasunik. Anton Garikano

Geldirik zegoen hantxe eta, lepoa luzatuz, ematen zuen bere sudurtzulo zabalekin usaina **aditzen** ziola ateko zur higatuari. Fernando Rey

Sukaldera itzuli denean Inesek usain zaharrak eta berriak **aditu** ditu. Pello Lizarralde

Airea garbitu egin da; ez da **aditzen** baratxuri usainik. Felipe Juaristi

3 (era burutua izen eta izenondo gisa) jakituna, zerbaitetan jakinduria duena.

Gizaki bati behin eta berriz ofizio batean arduraz aritu denean, **aditua** esaten zaio. Joan Mari Lekuona

Nik dakidala, hori da zenbaitetan **aditua** izateko bide bakarra: dena delako horretan aritua izatea. Iñaki Arranz

Dimasek jakingo zuen erleak koadrotik kentzen, eta beste intsektu guztiak ere bai, **aditua** zelako Dimas. Unai Elorriaga

Horrez gain, oso lekuko argi eta **aditua** zen, marrazten eta ikusten zuenaren berri ematen trebea. Xabier Olarra

Aditua dokumentu, estatistika, legedia baliabideen bilketan eta azterketan. Herria

- **Aditua** egin al haiz gai horretan? Jon Muñoz

Gero, egin duzun amets horrek zer esan nahi duen jakiteko, **aditu bat** behar da, psikiatra edo psikologo bat. Ana Urkiza

Dena dakien **"aditu" bat** da adimenik ezaren adibide garbiena. Iñaki Segurola

Ikasteko etorri naiz hona, eta ez dut alde egingo **aditu bat** izan arte. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ongizate ekonomian **aditua** den Vicenç Navarro ekonomilari kataluniarrak dio Europan bi Ongizate Estatu izan direla eredu. Iñaki Heras

Ekialde Hurbilean eta islamean **aditua** da Engelhard. Berria - Harian

Euskararen fonetika historikoaz egina zuen bere doktoretza tesi bikaina, **aditua** zen onomastikan. Koldo Zuazo

Euskara kontuetan **aditua** ni neu nintzen, ofizialki behintzat. Joxerra Garzia

Titinek bizkarra primeran duela adierazi du, ordea, eta ez dago **aditua** izan beharrik kantxara nolako gogo eta indarrarekin aterako den aurreikusteko. Berria - Kirola

Legumptionorum Doctor titulua adierazten duten letrak, legeetan **aditua**, legeetan bereziki trebea dena, alegia. Xabier Olarra

Bihotzeko gaitzetan **aditu bat** eta horretarako trebaturiko erizain bat egon beharko lirateke zentro bakoitzean. Berria - Gaiak

Ikertzaileek diotenez, gaixoei tratu egokia ematekotan, bihotzeko gaitzetan **aditu bat** eta horretarako trebaturiko erizain bat egon beharko lirateke zentro bakoitzean. Berria - Gaiak

Loeza eta nahigabeak nozitu eta gero joan zitzaion, eta hark nerbioetan **aditu bat** bilatzeko aholkatu. Patxi Zubizarreta

Nik banekien tatuajeak egiten **aditua** zela, eta ez nolanahikoa. Javi Cillero

Aditua zen okela zatikatzen, eta mahai ondo bete baten buruan egotea baino gauza gogokoagorik ez zuen ezagutzen. Irene Aldasoro

Aranzadi Zientzi Elkarteko **aditua** da, eta landare klase hauek ekarditzaketen arriskuei buruz ohartarazi nahi du. Berria - Gaiak

Bertan izan zen Jose Miqel Viladoms Kataluniako **aditua**. Berria - Euskal Herria

Publiko **aditua** dudarik gabe. Herria

Baina beharrezkoa dena irakurle **aditua** da, irakurle fina, unibertsitatearen barrenean ala kanpoan izan dadin. Ana Urkiza

Musikaletan oso **aditua** da Maitane. Berria - Kultura

Egia esan, bera, Lupe, ez da oso **aditua** larruaren gauza horietan, baina Damianekin bezala ez du inorekin egin. Hasier Etxeberria

Ez dakit, ni ez naiz **aditua** kostaldeko ekosistemen lehengoratze prozesuetan. Berria - Gaiak

Ni ez naun **aditua** ezertan. Lutxo Egia

4 *adietan eman* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ondotik igarotzen zareten horiek, honek ez ote dizue ezer **adietan ematen**? ETC-literatura, saiakera

5 *aditu ezin*

Hain luze joak ziren gure itzalak, gure **aditu ezinak**, gure ulertu ezina. Joxan Elosegi

Bihotza zintzurreraino joan zitzaion, atean, aspaldiko bere umezurtzaren itxura ikusi zuenean eta, hitz bakar bat ere **aditu ezin** izan zuen Marirekiko elkarrizketa laburraren epean, taupada bizi haiek ez zitzaizkion baretu. Elena Touyarou

Joan Bataiatzailea ez zen eroa Kaligula bezala, baina tonto samarra zen, zeren garrasika ibiltzen baitzen basamortuan, inork **aditu ezin** zion tokian. Bernardo Atxaga

Llumen aurpegiak oinazea, elkar **aditu-ezina**, tristura islatzen du. Antton Olano

Deigarria zen gizon handi sendo hark zer esku delikatu luzeak zituen, zer pausaje xuabe, isil, ia **aditu ezina** eta, oro har, zer mugimendu baratz, zalantzati, kontu eginak. Matías Múgica

Bbaina itsasadarra beti egongo da hor, betidanik egon den legez, denon bizitzak zelan pasatzen diren ikusten, kalatxoriei kontatzen guk **aditu ezin** dugun urezko hizkuntzaz. Sonia Gonzalez

Zarata handi batek harrapatuta baninduka bezala ibili nintzen goiz guztian, arreta ganorazko ezertan tajutu gabe eta gainerakoen hitzak **aditu ezinik**. Hasier Etxeberria

Gizonak beti egin behar dik emakumeak espero ez duena, eta orobat esan behar dik emakumeak **aditu ezin** duena. Antton Olano

6 *aditu ezineko*

Basurtokoa Joanesi hitz batzuk esaten ari zitzaion,gu geunden lekutik **aditu ezineko** ahotsez. Edorta Jimenez

7 *aditzea eduki*

Aditzea daukat ez daukazuela telefonorik etxean. Oskar Arana

8 *aditzea izan*

Lehenengoz aitaren abenturen **aditzea izan** zuelarik, sorbaldak jaso, eta axolagabe esan zuen: "Gizona da eta, beraz, zer nahi, horixe egin dezake". Patxi Zubizarreta

Seguruenik kafera gauero etortzen zaion lotsagalduaren **aditzea izango** duzu, ezta? Patxi Zubizarreta

Nik ulertzen nuen moduan, malenkoniaren ikurrera lerraturiko elkar-**aditzea zen**. Fernando Rey

Aditzea izanen duk Beotibarko Guduarena. Patziku Perurena

Mendian galdutako gotorleku txiki baten **aditzea izan** zuen Hassanek. Jon Muñoz

Kanpotar itxurako gizon bat zegoen aitaren alboan, Norak sekula ikusi edo **aditzea izan** zuenik ederrena. Anjel Lertxundi

9 *aditzera eduki*

Villistak, ez dakit berorrek **aditzera daukan**. Juan Garzia

10 *aditzera eman*

Eztei-otorduko zazpi egunetan emaztea negarrez ari izan zitzaion. Azkenean, nazkatu zuen eta Sansomek **aditzera eman** behar izan zion. Emazteak berehala bere

herritarrei jakinarazi zien. Elizen arteko biblia

Tapiz zoragarriak zirela esan ohi zion Big Lanniek eta Raymond harro sentitzen zen amonak **aditzera ematen** zionean zeinen azkar saldu ahal izan zituen. Mirentxu Larrañaga

Nekazaritza eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) **aditzera eman** duenez, datozen hiru urteotan 36 milioi dolar beharko dira hegazti gripearen kontrako borrokan. Berria - Gaiak

Zhejiangeko agintariek **aditzera eman** dute tifoiak 42.400 etxe bota, beste 88.000 kaltetu eta 260.000 landa hektarea urpean utzi dituela. Berria - Mundua

Bi aldiz, eta ez barruan dagoenaren belarria gogaitzeko bezain sendo, baina ezta deitzen duenaren atzean funtsik gabeko izaera lotsati eta zaurgarria dagoela **aditzera emateko** bezain leun ere. Harkaitz Cano

Nik eman nion, ordea, horretarako bidea, beraren asmakeriak aintzat harturik eta hasieratik **aditzera emanik** serio hartzen nuela: merezia nuen, neu konpon nendila orain, lirio--lore, fosforo, untxi eta enparauekin. Juan Garzia

Garbi dago nobelaren dekoratu grisa, angustia eta gizonaren bakardadea **aditzera eman** nahi duen lan baterako egokia, bere ingurutik hartu zuela. Monika Etxebarria

Baina, lehen eszena hark **aditzera eman** dezakeen ez bezala, bi urte gogor igaro behar izan genituen. Joan Mari Irigoien

Xehetasunik ez nizun eman, eta bai erregutu, ordea, zuk ere ez eskatzeko halakorik, esan gabe baina **aditzera emanaz** gorabehera ilun samarren batean sarturik nengoela. Xabier Mendiguren Elizegi

Sentitu berri zuen eta **aditzera ematerik** izan ez zuen nahigabea berdintze aldera, menturara arriskatzeko gogo bizi batek hartu zuen. Patxi Zubizarreta

Eta nik, neure artean, miretsi egiten nuen, baina ez nien bere familiakoei **aditzera ematen**, banekien denak jeloskor jarriko nituela eta. Josu Zabaleta

Sakon bizitzen saiatzen zen arren, edo sakon bizi zelako, hobeki, umore handiko gizona zen, sekula ezkondu ez zena, bere idealetara iraulia bizi izan zelako, nik hala uste, haren ibilbideak eta nondik norakoak hori **aditzera ematen** dute behintzat. Joan Mari Irigoien

Ez da, ez, bihozgabekeria; aitzitik, itxurek **aditzera ematen** dutena baino gehiago maite zaituztet. Itziar Otegi

Matematikarentzat zorionean - zioen Grosrouvrek -, beste aurkikuntza batzuk ere egin zituen Fermatek, bere aieru ospetsua **aditzera emateaz** gainera. Jon Muñoz

Espero behar zuen noiz edo noiz nik galdera hura egitea, baina jarri zuen aurpegiak **aditzera ematen** zuenez, munduko konturik bitxiena aipatu nion. Anjel Lertxundi

ETAk berean segituko du, behin eta berriz **aditzera eman** duenez, Ebrotik Atturrira bitarteko lur eremu guztian autodeterminazio eskubidea erabiltzen den egunera bitartean. Hasier Etxeberria

Mezuen ekarleak saiatu omen zitzaizkion **aditzera ematen**, egoera hartan, sasiaren lege latzen barruan, ez zegoela besterik egiterik, ulertu behar zuela. Iñaki Iñurrieta

Are gehiago, norbaitek emakumezko esklabo baten ederra goretsi nahi duelarik, mutikoen dohainak haren ezaugarriak **aditzera emateko** aipatzen ditu. Patxi Zubizarreta

Ibarrak ez beste hirurek mehatxuak eta presioak pairatu dituztela salatu zuten epailearen aurrean, Askatasunak **aditzera eman** duenez. Berria - Euskal Herria

11 *aditzera izan*

Hodeien **aditzera izan** du eta orduan hodei xelebreak imajinatzen ditu, zeruan barna dabiltzan eta inork harrapa ezin ditzakeen hodeiak. Fernando Rey

"Eta Martin Lopezen emazteak gertatuaren **aditzera izan** zuenean, joan zen gajoa Santa Anako belardira, eta ikusi zuenean bere senarraren gorpua odoletan eta elbarriturik, jarri zen belauniko, hartu zuen senarra besoetan eta marruez hasi zen, gerra eta bere suerte makurra madarikatuz. Koro Navarro

157 herrialdetan ari da denera."Herrialde horietako askotan haurrak etengabeko larrialdi egoeran bizi dira, muturreko pobrezian hazten ari direlako, hezkuntzarik eta oinarrizko osasun zerbitzurik gabe», eman du **aditzera Dan** Toolek. Berria - Gaiak

12 *ederrak aditu*

Erakaskuntzaren sailean adibidez, gaitzeko prediku **ederrak aditzen** dira gela elebidunen alde. Herria

-Ederrak aditzen dira zure tabernan, zera! -esan nion. Matías Múgica

13 *ez aditu egin*

Eta, nola Joxek ez baitzuen ulertzen Antonioren jokamolderik, liskartzen eta ahakartzen hasi zitzaion, haserretzen eta etsaitzen noiznahi-den, orain arrazoin bat emaiten ziola eta orain bertze bat, baina gipuzkoarrak **ez-aditu egiten** zion edo irri batekin ihardesten zion, gisa hartan jokatzerat deliberatu zenez gero. Joan Mari Irigoien

Joanesek berehala ulertu zuen nondik nora zebilen bere alkate eta nagusia, baina, belarriak erne-erne, ez entzun egiterik ez zuenez, **ez aditu egin** zuen. Felipe Juaristi

-Jainkoaren hitzari **ez aditu egin** diotenena izan dadila Jainkoaren zigorra! Aingeru Epaltza

14 *ez adituarena egin*

Beti uste izan dut ezen emakume bati laudoriorik baizik ezin egin zaiolarik, hobe dela **ez adituarena egin** eta bertze zerbaitetan aritzea. Jon Muñoz

Edo **ez adituarena egiten** da hor gaindi, edo beti zerbait estakuru tzar jalgitzen da egin behar litakeen haren ez egiteko denen buru... Herria

Bainan kofesorak **ez adituarena egiten** du, deusik ihardetsi gabe uzten du gure etxeko seme handia. Xipri Arbelbide

Smithers andreak **ez adituarena egiten** zuen, baina urduritzen hasia zela konturatu nintzen. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

aditu ahal (22); **aditu ahal izan** (11); **aditu al** (19); **aditu al duk** (8); **aditu askok** (27); **aditu askoren** (16); **aditu bat** (18); **aditu batek** (22); **aditu baten** (12); **aditu batzuek** (24); **aditu batzuen** (14); **aditu behar** (18); **aditu bezain** (23); **aditu bezain fite** (17); **aditu da** (15); **aditu diat** (8); **aditu diot** (9); **aditu diren** (9); **aditu ditut** (10); **aditu du** (20); **aditu duk** (9); **aditu dut** (37); **aditu duzu** (13); **aditu edo** (10); **aditu egin** (9); **aditu ere** (32); **aditu ere nahi** (8); **aditu eta** (116); **aditu ez** (28); **aditu gabe** (16); **aditu gabeko** (9); **aditu gehienek** (14); **aditu gehienen** (8); **aditu genuen** (11); **aditu guztiak** (8); **aditu guztiek** (13); **aditu horiek** (9); **aditu izan** (36); **aditu izan dut** (8); **aditu nahi** (82); **aditu nahi ez** (8); **aditu nahi izan** (11); **aditu nion** (32); **aditu nire** (8); **aditu nituen** (40); **aditu nuen** (126); **aditu orduko** (27); **aditu ote** (11); **aditu talde** (54); **aditu talde bat** (27); **aditu talde batek** (19); **aditu taldearen** (8); **aditu uste** (11); **aditu zen** (78); **aditu zion** (10); **aditu ziren** (31); **aditu zituen** (22); **aditu zuen** (85); **aditu zuenean** (22); **aditu zuten** (22); **ahotsa aditu** (15); **aldiz aditu** (15); **bat aditu** (76); **bat aditu nuen** (12); **bat aditu zen** (26); **batzuk aditu** (25); **berriro aditu** (8); **beste aditu** (14); **boza aditu** (13); **da aditu** (9); **deus aditu** (9); **diote aditu** (9); **du aditu** (19); **dugu aditu** (9); **dut aditu** (8); **dute aditu** (23); **elgar aditu** (8); **ere aditu** (36); **eta aditu** (64); **ez aditu** (13); **ez du aditu** (13); **ezer aditu** (8); **gabe aditu** (8); **haiek aditu** (16); **hainbat aditu** (17); **hitz haiek aditu** (8); **hitzak aditu** (22); **hori aditu** (10); **hotsa aditu** (32); **hotsa aditu zen** (10); **hotsak aditu** (11); **hura aditu** (25); **inoiz aditu** (14); **nazioarteko aditu** (14); **ondo aditu** (8); **sekula aditu** (12); **unibertsitateko aditu** (10); **usaina aditu** (16); **zela aditu** (9); **zenbait aditu** (11); **zion aditu** (8); **zuen aditu** (13); **zuten aditu** (11)

aditua da (61); **aditua den** (23); **aditua ere** (9); **aditua eta** (11); **aditua ez** (17); **aditua izan** (15); **aditua nago** (9); **aditua naukak** (12); **aditua nuen** (14); **aditua zela** (8); **aditua zen** (24); **adituak bildu** (9); **adituak diren** (25); **adituak ere** (8); **adituak eta** (14); **adituak ez** (15); **adituak izan** (11); **adituaren arabera** (18); **adituek atzo** (9); **adituek azaldu** (28); **adituek azaldu dutenez** (13); **adituek azaldu zutenez** (15); **adituek diote** (28); **adituek diotenez** (44); **adituek egindako** (8); **adituek ere** (14); **adituek erredakzioa** (15); **adituek esan** (12); **adituek eta** (17); **adituek ez** (22); **adituek ez dute** (14); **adituek iragarri** (10); **adituek uste** (14); **adituen arabera** (253); **adituen arabera** (253); **adituen artean** (28); **adituen artean** (28); **adituen batzordeak** (16); **adituen batzordeak** (16); **adituen esanetan** (140); **adituen esanetan** (140); **adituen eta** (10); **adituen eta** (10); **adituen iritzia** (10); **adituen iritziak** (10); **adituen iritziak** (10); **adituen iritziz** (12); **adituen iritziz** (12); **adituen ustetan** (12); **adituen ustetan** (12); **adituen ustez** (89); **adituen ustez** (89); **adituren arabera** (21); **adituren ustez** (15); **adituz gero** (9); **aldiz aditua** (10); **atzo adituek** (10); **baina adituek** (9); **baina adituen** (10); **baina adituen** (10); **da adituen** (8); **da adituen** (8); **dagoeneko aditua** (12); **dagoeneko aditua naukak** (12); **dela diote adituek** (33); **diote adituek** (98); **dira adituak** (16); **diren adituek** (9); **dituzte adituek** (21); **dute adituek** (196); **dute hainbat adituk** (17); **dute zenbait adituk** (12); **duten adituek** (14); **duten adituen** (12); **duten adituen** (12); **erakundeko adituek** (8); **ere aditua** (8); **esan dute adituek** (31); **eta aditua** (11); **eta adituak** (15); **eta adituek** (28); **eta adituen** (26); **eta adituen** (26); **europako kontseiluko adituek** (8); **gaietan aditua** (9); **hainbat adituk** (69); **hainbat adituren** (18); **horretan aditua** (10); **kontseiluko adituek** (8); **nazioarteko adituak** (8); **nazioarteko adituek** (16); **nazioarteko adituen** (8); **nazioarteko adituen** (8); **ohartarazi dute adituek** (12); **omeko adituek** (10); **oso aditua** (11); **uste dute adituek** (48); **zenbait adituk** (41); **zenbait adituren** (34); **zenbait adituren arabera** (15); **zenbait adituren ustez** (12); **zuen adituak** (10); **zuten adituek** (42); **zuzenbidean aditua** (9)

---

aditu[2] 1 *iz* jakituna, zerbaitetan jakinduria duena.

Nazioarteko Aristides Calvani Heziketa Zentroan bildu ziren **adituek** Chavezi Estatu Batuekiko bere harremanak zuzendu eta indartu ditzan eskatu zioten. Pako Aristi

Adituek diotenez, Hugoren aipamena ez da zehatza. Koldo Izagirre

Adituek hidroterapia deitzen diote. Xabier Paya

Dagoen bibliografia apurra irakurri, **aditu** pare batekin hitz egin eta Euskaltzaindiarekin harremanetan jarri ondoren, orain arte egin diren proposamenak ez zaizkit oso erabilgarriak iruditzen, dauden moduan. Ibon Uribarri

-Horretan zeu zara **aditua**, zeuk dakizu inork baino hobeto. Joxemari Urteaga

OMEko **adituek** atzo aditzera eman zutenez, beste bi lagun hil dira Txinan hegazti gripeak jota, eta denera 78 dira mundu zabalean gaitzak hil dituen pertsonak Berria - Gaiak

Zientzia eta bere iritzi etiko-politikoak nahaski transmititzea ere amarru egitea litzateke: bera zientzian baita **aditua** eta autoritatea, balioetan edo etikan ez. Joxe Azurmendi

Adituak ez dira gai esplikatzeko bat-batean hontzek zergatik aldatu dituzten lo-ohiturak", esatariak irribarre txiki bat egin zuen. Iñaki Mendiguren

Hala ere, Gidor Bilbao adiskideari kontsulta egitea deliberatu nuen, bera baita, nik dakidala, Etxeberri Sarakoari buruzko **aditurik** handiena, eta ikastolan jasotakoaren. Iban Zaldua

Hala gelditu zen, zangoak zabalik, esku bat jakaren sakelan eta zigarroa bestean kea zeriola, poza hartu duen **adituaren** itxuraz. Ander Irizar

Hori esan nahi izaten nien askotan, bai, baina ez nuen modua aurkitzen nire pentsamenduak ulertarazteko, eta bi **aditu** haien arteko eztabaidak aguantatu behar izaten nituen etxerako bidean eta etxean bertan. Jon Arretxe

Adituaren plantak egin nituen. Lander Garro

Gure iritzian jaun agurgarri hau **aditua** da politika gaietan. Josu Zabaleta

Ez zegoen meteorologian **aditu** handia izan beharrik aurki euriaren eskuek igurtziko gintuztela igartzeko. Juan Luis Zabala

Operan **aditu** bihurtzeko bidean nago: bigarren aldiz ikusiko dut aurten Ainhoa Arteta Musettarena egiten. Harkaitz Cano

Adituek diotenez, poesiaren jatorrizko egitekoa sakratua zen: biziunerik esanguratsuenen liturgia, giza-miseriaren babes eta aterpe. Joxerra Garzia

Halere, urteak pasatu ahala, eguraldi igarleak ugaltzen doaz eta ikasiagoak bezala, Meteosat eta beste, meteorologian **adituagoak** eta jantziagoak ere badira. Pello Zabala

Hidraulikako **adituak** badaki balioesten gorputzak fluidoak zirkulazteko eta kontserbatzeko dituen sistema burutsuak, eta berokuntza- eta eguraste-sistemetako aholkulariari miresgarri gertatzen zaizkio sudurraren eraginkortasuna eta ekonomia. Irene Aldasoro

Horrek ez du itzultzailea idazle egingo, edo arte **aditua** Velazquez bihurtuko. Alberto Barandiaren

Horregatik hizketa patologia eta terapiaren eremua lan-sail oparoa da fonetikarien eta bestelako **adituen** arteko elkar-laguntzarako. Lourdes Oñederra

Amazonia arriskuan dagoela esan dute **adituek**. Berria - Gaiak

· **2** *izond*

Horregatik, zuk eskaturiko lan hori dela kausa, gormutuen teknika ikasten ari naiz orain atrako batean bi txukel kalitutako pedagogo **aditu** ohi batekin. Koldo Izagirre

Antzematen denez, Hegoafrikako langile **adituen** artean, gauzak bideratzen ez badira, % 19k HIESa izango du 2015 urterako. Pello Salaburu

Nolanahi dela ere, pozten naiz Mr Bunburyk zereginen bati lotzea erabaki izana azkenean, eta mediku **adituen** aholkuari jarraituz egin izana. Antton Olano

Biak irakasleak zirela esan zien, gizon **adituak** oso, elkar ondo ulertuko zutenak.

3 ***nazioarteko aditu***

Nazioarteko adituek osaturiko epaimahai batek emango ditu sariak, lau guztira: lanik onenari, laburmetrai onenari, zuzendari onenari eta gidoi onenari. Berria - Kultura

Laneko segurtasunaz ariko dira **nazioarteko adituak** Donostian. Berria - Ekonomia

Proiektuak David Mariezkurrena historialariaren eta Maite Domezain adituaren laguntza izango du, eta **nazioarteko adituen** batzordea du bere gain. Berria - Harian

Nazioarteko aditu onenei galdetu nien eta %4ko zifra aipatu zidaten. Berria - Euskal Herria

4 ***sistema aditu*** *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Horietako zenbaiti "**sistema aditu**" deritze, giza erabiltzaileen metodoak imitatzen saiatzen direlako. ETC-literatura, saiakera

Baina hona hemen datorren urtetan garatu beharko diren batzuk: itzulpenerako laguntzak, terminologia lantzeko tresnak, estilo-zuzentzailea eta euskara ikasteko **sistema aditua**. ETC-prentsa

70eko hamarkadan adimen artifizialari berriro bultzada eman ziona, **sistema adituen** -ingelesezko expert systems- agerpena izan zen. ETC-prentsa

Sistema adituen ikerketa bultzatzea da bigarrena, hezkuntza eskubidea berma dadin, jaiotzen garen lekuaren arabera aldaketa handiak baitaude. ETC-prentsa

Gerta daiteke nik saltzea **sistema aditu** bat, ikasten duena zuk ematen diozun esperientziaren arabera. ETC-prentsa

Zientzia eta ingeniaritzaz gain, robotika, hizkuntzaren prozesamendua, konputagailu bidezko ikusmena, optimizazioa eta **sistema adituak** irakatsiko dira. ETC-prentsa

Nazionalitateka ibilbide ezberdinak egiten dira, stock effect edo tantakako prozesuan oinarrituta, hari ikusezin batek **sistema aditu** bat sortzen duelarik. ETC-literatura, saiakera

Beste tresna batzuek (adibidez, SECSI) **sistema adituen** teknologia erabiltzen dute diseinu-prozesua egiteko, eta diseinuko ezaupideak erregela gisa aplikatzen dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sistema adituak paradoxikoak dira: bakoitzak zer sistemari zerbitzu eman, bada, hura bezain paradoxikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikastxip (Zubiri, 1990) izan zen euskara ikasteko garatu zen lehenengo **sistema aditua**, Idazkide (Diaz de Illarraza et al. ETC-zientzia, zuzenbidea

Chatbotak, besteak beste laguntzaile birtualen elkarrizketa sistemetan txertatu ohi dira, solaserako edota euren **sistema adituaren** eremutik at dauden gaiez aritzeko gaitasuna emanez sistema horiei. ETC-entziklopedia

Kontrol lausoko sistema bat denbora errealeko **sistema aditu** bat da, eta giza operadore baten trebetasuna inplementatzen saiatzen da. ETC-entziklopedia

---

adituezin *izond* aditu ezinezkoa.

Aldi berean, hots sorta ia **adituezin** bat goratu zen. Jon Muñoz

---

aditz *(ETCn **8.004** agerraldi)* **1** *iz* gramatikan, egintza, egoera, edo gertaera bat adierazten duen hitza, bertan gauzatzen diren denboren, pertsonen eta abarren arabera aldatzen dena.

Morfologia, hitzen kategoria desberdinez (**aditz**, izen, adjektibo, izenordain eta abarrez) arduratzen da. Isabel Arrigain

Morfema hauen esanahia izen, **aditz**, adjektibo eta beharbada beste talde handien esanahiaz errotik bestelakoa dela defendatu ohi da. Itziar Laka

Hustu, durduzatu egiten nau **aditz** horrek. Joxan Elosegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euskarak badu, gainera, jardun mota bakoitza zedarritzeko bitarteko berezia: **aditz** alokutiboak. Koldo Zuazo

aditz sintetikoak erabiliz esaldiak osatu behar dituzte ikasleek: *daramazu, dario, dakartzate, genekien*... Joxerra Garzia

Frantsesean gogotik ari naiz lanean, eta egunean bost **aditz** irregular sartzen ditut buruan. Josu Zabaleta

Aditz trinko eta erranmolde arraro horiek gabe ere ez ote zen berdin ederra izanen? Xipri Arbelbide

Substantibo bakun batek **aditz** anizkun bat goberna zezakeen. Juan Garzia

Ez liguke balioko ihardesteak berba hori ez dela konjugatzen lehen edo hirugarren erro ahulekoen atzera, salbuespeneko adizkera batzuk, analogiari jarraiki gabe, arautik saihesten direlako, batez ere **aditz** ahul hauetan. Xabier Kintana

Denak "hil" esanahia duen **aditz** bakar baten formak direnak. Isabel Arrigain

(52i) kateko have "ukan" eta (52ii) kateko be "izan" **aditz** nagusiak dira, ez laguntzaileak. Itziar Laka

Aditz laguntzaile hauen azterketa guztiz erabakigarria gertatzen da ingelesaren gramatika garatzean. Itziar Laka

Gainerako **aditz** iragankor guztien kasuan, (54ii) eta (55ii) bezalako formak ezinezkoak dira. Itziar Laka

Euskaraz eraikuntza pasiborik ez dagoenez, gramatikatik kanpoko adibidea itzultzean, **aditz** iragangaitzaren erabilera iragankorra ematen dugu. Itziar Laka

Nahigabean datoz nere sentimenduen ehundegira **aditz** sorginok. Patziku Perurena

"Bultzatu" esan nahi duen latinezko **aditz** batetik dator *pultsio* hitza. Josu Zabaleta

Segituko dugu **aditz** batua erabiltzen idaztean. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aditz mota bakoitza zein hiztun multzok erabiltzen ote dituen ere galde genezake. Koldo Zuazo

Euskalki bakoitzean bertako **aditz** egitura bereziari jarraitzearen aldekoa da nire iritzia. Koldo Zuazo

Natalinak oker erabiltzen zituen **aditz** erregimenak eta orain zuka orain berorika egiten zuen. Fernando Rey

Bere baitan sartu zela eta baldarturik zegoela izango lirateke **aditz** -denbora egokiak. Jon Alonso

Hil hurran diren metaforak, gezurretako **aditz** erabilerak (adizki soilak baztertu eta kate luze bihurtzen diren **aditz** lokuzio horiek guztiak). Iñigo Aranbarri

Erro hauek ezberdinak diren arren, dakizunez, esangura bera dute beren **aditz** -joko guztietan. Xabier Kintana

Aditz izenetako morfemetan ez da erabateko batasunik. Koldo Zuazo

Antzinako goi alemanez, lehen elementua ez zen **aditz** elementua, izen bat baizik (28) erregeletan, Aditza elementua LagA bezala aztertzen genuen, eta ondoren, besterik gabe, A saileko **aditz** erroak zerrendatzen genituen. Isabel Arrigain

Baionan erabakitakoa betetzea onartu zen eta, aldi berean, han aipatu gabeko bat aurkeztu zen: partizipioa eta **aditz** oina bereiztea, hau da, *ikusi du* eta *sartu da*, baina *ikus daiteke*, *sar hadi*. Koldo Zuazo

Ingelesez, izen sintagmak **aditz** sintagmen barnean egon daitezke. Itziar Laka

4 ***aditz arazle*** *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Eta data, mugagabearen deklinabidea eta erabilera, eta **aditz arazleak** klasikoak dira etsamina horretan. ETC-prentsa

Adibide gisa, egin arazi aditzaren antzeko **aditz arazleen** kasua aztertu dugu, baina fenomenoa beste eremu gramatikal askotan ikus daiteke, bakoitzean bere ñabardura eta berezitasunekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi nominalizazio ere aurkitu ditzakegu aditz jakin batzuk uztarturik (**aditz arazleak** bereziki: kausa/ondorio zein ondorio/kausa erlazioa adieraziz). ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***aditz bakun*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Zenbaitetan, **aditz bakun** batean oinarrituriko konposizioa egiten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***aditz bihurkari*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hizkuntzalaritzan, **aditz bihurkaria** . ETC-entziklopedia

7 ***aditz elkartu*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Modu horiei esker, mugimenduzko ekintza bat modu askotara deskriba daiteke euskaraz: aditz sinple batez (etorri, ibili), **aditz elkartu** batez (igeri egin, buelta eman), aditz eratorri batez (aideratu, inguratu), sinonimoen bidez (atera, irten) eta inguruko hizkuntzetatik hartutako maileguen bidez (ailegatu, segitu). ETC-zientzia, zuzenbidea

Aditz perifrastikoa edo **aditz elkartua** , bi hitzez osatuta dagoen aditza da. Aditz trinkoetan informazio guztia hitz bakar batean bilduta badago (nator) aditz perifrastikoetan informazioa bi hitzetan ematen da (etorri naiz). ETC-entziklopedia

8 ***aditz erro***

Honako hauexek dira arlo honetan hartu diren erabakirik esanguratsuenak: bait -aditzari lotuta idaztea, eta sortzen diren aldakuntza fonetikoak islatzea (baitu, baikara, bainaiz, baihaiz, bailuke, baitzuen), arazi **aditz erroari** lotuta idaztea (isilarazi, harrarazi).... Koldo Zuazo

5.3 pasartean, (28) erregeletan, Aditza elementua LagA bezala aztertzen genuen, eta ondoren, besterik gabe, A saileko **aditz erroak** zerrendatzen genituen. Itziar Laka

Nola izan diren ahalezkoak aldi berean edo hurrenez hurren (hautaketa alternatiboaren, aldaketaren edo ordezkapenaren forman) izan aditzaren adiera ezberdinak, kopularenak, **aditz erroarenak** eta hondarkiarenak (hau atribuzioaren eskema teorikoari dagokionean)... Xabier Arregi

9 ***aditz flexio***

Gaur egun ez dute dagoeneko euskarririk egungo **aditz flexioan**): hizkuntza haien ordez beste forma batzuk sartzen saiatu da;... entzun ohi da -forma horiek... eta abarren gainean osatu dira-, eta hondarki berri horiek ohikoak dira elkartu gehienetan. Isabel Arrigain

10 ***aditz iragangaitz*** argumentu bakarra duena. ik **iragankor 2**.

Aditz **iragangaitzak** zero-objektuak dituzten aditzak direla proposatzen duen ideia. Itziar Laka

Aditz **iragangaitzaren** erabilera iragankorra. Itziar Laka

· Ingelesez, *growl* **iragangaitza** da nahitaez, eta *raise* iragankorra nahitaez. Itziar Laka

11 ***aditz iragankor*** bi argumentu dituena. ik **iragangaitz 2**.

Argi dago perpaus pasiboei boz aktiboko perpausak dagozkiela sistematikoki, ezaugarri erabat espezifikoak dituztenak, hala nola aditza **iragankor** akusatiboa izatea. Itziar Laka

Orain, *be+en* elementuak aditz **iragankorra** eskatzea, *A+IS* aurretik ezin agertzea, *A+by+IS* aurretik agertu beharra (*A* **iragankorra** denean), inguruko izen sintagmen hurrenkera iraultzea, denak (34) erregelaren ondorio automatikoak ditugu. Itziar Laka

Bitara itxura litekeela *shoot* "tirokatu" aditz **iragankor** edo iragangaitz gisa hartuz gero. Itziar Laka

· Aditz iragangaitzaren erabilera **iragankorra** . Itziar Laka

12 ***aditz izen***

-- **Aditz izena** da, baina gaur egun... aditzaren **aditz izena** ikusten da... -en eta... idatzi ohi da. Isabel Arrigain

(5) **Aditz izenetako** morfemetan ez da erabateko batasunik. Koldo Zuazo

13 ***aditz izendatzaile***

--..., jatorriz,... -z bukaturiko **aditz izendatzaileekin** dago erlazionatua; aditz horietako gehienek, bere aldetik, -a-z bukaturiko izen femeninoetaraino garamatzate (cf.... gr....). Isabel Arrigain

14 ***aditz izenondo***

Analogiaz sorturiko forma batzuk fluktuazio horren lekuko dira, hainbesteraino, non non... -z bukaturiko oinarri batzuk bukaerako -s hori hartzera iritsi baitziren (--... -ren **aditz izenondoa** , esaterako,... eratu zen). Isabel Arrigain

15 ***aditz joko***

Funtsean fonetikoak inondik ere ez diren aldaketa hauek zirela eta, txikitu zen **aditz jokoaren** formen kopurua, eta flexio horretako erradikalen alternantziek lehen mailako balioa hartu zuten esanahiaren aldetik. Isabel Arrigain

Izen eta **aditz jokoa** oso aberatsa da. Isabel Arrigain

5 orrian **aditz-jokoetatik** datozen hitzak pilatu ditut: esana, izana, joana, emana, edana... Andoni Egaña

Erro hauek ezberdinak diren arren, dakizunez, esangura bera dute beren **aditz-joko** guztietan. Xabier Kintana

16 ***aditz laguntzaile***

Aditz laguntzaile eta izenordainen taulak. Berria - Euskal Herria

Aditz laguntzailearen orainaldia ongi jakinez gero. Berria - Kultura

Aditz laguntzaile batuaren ezaugarririk esanguratsuenak. Koldo Zuazo

Emakume hark nirekin jolasean aurrera egiteko gogoa zeukala iruditu zitzaidan 'duk' aditza, **aditz laguntzailea** edo dena delakoa entzun nionean. Hasier Etxeberria

Murrizketa hauek guztiak berreratu beharko ditugu, alderantzizko hurrenkeran, *be+en* **aditz laguntzailearen** atal gisa aukeratzen den kasuetarako. Itziar Laka

Aditz laguntzailearen osagaia aztertzean. Itziar Laka

Iparraldeko joera, hain zuzen -alegia, besteak beste, **aditz laguntzailea** aurreratzekoa-. Juan Garzia

Aditz laguntzaileen morfologia osoa ikertu zuelako. Berria - Kultura

17 ***aditz nagusi***

(52i) kateko have "ukan" eta (52ii) kateko be "izan" **aditz nagusiak** dira, ez laguntzaileak. Itziar Laka

18 *aditz oin* ik **aditz erro**.

Partizipioa eta **aditz oina** bereiztea, hau da, *ikusi du* eta *sartu da*, baina *ikus daiteke, sar hadi*. *Koldo Zuazo*

Mendebalean, erdialdean eta euskara nafarreko hizkera batzuetan galdu egin da **aditz oina**. Koldo Zuazo

19 *aditz perifrastiko* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Aditz perifrastikoa edo aditz elkartua, bi hitzez osatuta dagoen aditza da. Aditz trinkoetan informazio guztia hitz bakar batean bilduta badago (nator) aditz perifrastikoetan informazioa bi hitzetan ematen da (etorri naiz). ETC-entziklopedia

Jakin-gose handia neukan ikusteko ea aliziak gerorik ez zeukan edo **aditz perifrastiko** batera bera ere pasatu ote zen. ETC-literatura, saiakera

Edo adjektibo bat, edo **aditz perifrastiko** bat, edo erlatibozko esaldi bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esperimentua oso erraza da, **aditz perifrastiko** hauek ahoskatu behar dira: ETC-zientzia, zuzenbidea

Aditz jokatuen artean, **aditz perifrastikoa** -aditz nagusia, hondatu, gehi aditz laguntzailea, da-, horrela deitzen zaie hitz bat baino gehiago erabiltzen dituzten aditzei. ETC-literatura, saiakera

20 *aditz sintagma*

Aditz Sintagmaren ikerkuntza sakonago batek, aztertu berri dugun aditzapartikula eraikuntzak bezalatsu jokatzen duen aditzaosagarria (AOsag) eraikuntza orokor bat badela erakusten du. Itziar Laka

- Azpimarratu nahi duzuna **aditz sintagmaren** aurrean jarri. Askoren artean

21 *aditz taula* *(corpusean ez dago; ETCn **82** agerraldi)*

Mikel, beti bezala, bere gauzetan ari zen, eta paretan erantsirik zegoen euskal **aditz taula** begiratzen ari zen. ETC-literatura, saiakera

Ez dizkizut ostabere aitatuko Erratzek utzi dizkidan **aditz taulak**, ez dakit nondik atereak. ETC-literatura, saiakera

Aditz-taulan gora eginez ahalezkoarekin topo eginen duzu. ETC-literatura, saiakera

Gau eskoletan eskutik eskura zebiltzan Txillardegik prestatutako **aditz taulak**. ETC-literatura, saiakera

Esate baterako, **aditz taulak** bizkaieraz eta batuaz aurkitzeaz gain, aditz itzultzailearen bidez batuaz dagoena bizkaieratu ahal izango duzu, eta alderantziz. ETC-prentsa

Begira, prentsa irakurrita alfabetatutako belaunaldi batekoa naiz, **aditz taularik** gabe, deklinabide atzizki gabe, zenkizkieketen eta zeniezakiguketen ezinezkoetan amorrarazi gabe hazia naiz, hitzen bidez osatzen joan izan banintz bezala. ETC-prentsa

Eta Euskarako klaseetan, hortaz, Kaiku zigilua duen **aditz taulak** mamitsuagoak izango dira. ETC-prentsa

Bukatu da **aditz taulak** buruz ikastea. ETC-prentsa

Gramatika arauak, **aditz taulak**, ariketak eta beste bildu ditu, edozein euskaldun alfabetaturentzat baliagarri izan daitezkeelakoan. ETC-prentsa

Goiza galdu nuen gure **aditz-taulak** sarean bilatzen. ETC-prentsa

Betidanik miresgarriak aurkitu ditut **aditz taulak**, izan Lafitteren zein Txillardegiren gramatiketan edo Urruxulegiren metodo zehatz honetan. ETC-prentsa

Txertoa argitaletxeak plazaratu duen lanak honako atalak ditu: historia, gramatika, **aditz-taulak**, aditz trinkoak, ariketarako testuak, ariketen zuzenketak, lexikoa eta bibliografia. ETC-prentsa

Munarrizek **aditz taularekin** ikertu du euskararen egitura, berak sortutako metodoaren bidez. ETC-prentsa

22 *aditz trinko* aditz laguntzailerik gabe osatzen den aditz forma.

1977an egin zen beste urrats esanguratsu bat: batasunerako **aditz trinkoak** aurkeztu ziren (egon, joan, etorri, jarraitu, etzan, ekarri, eduki...). Koldo Zuazo

Asko jostatzen naiz, adibidez, aditz **trinkoekin**. **Aditz trinkoak** noiznahi erabiltzen ditu, Iparraldean egiten ohi ez den bezala. Ana Urkiza

Aditz trinko eta erranmolde arraro horiek gabe ere ez ote zen berdin ederra izanen? Xipri Arbelbide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aditz bat** (3); **aditz batetik** (3); **aditz egitura** (3); **aditz eta** (3); **aditz forma** (6); **aditz hau** (4); **aditz hau jainkoari** (3); **aditz hori** (3); **aditz horrek** (5); **aditz iragankor** (5); **aditz irregularrak** (3); **aditz laguntzaile** (5); **aditz laguntzailea** (6); **aditz laguntzailearen** (10); **aditz sintagmaren** (5); **aditza erabili** (4); **aditza erabili** (4); **aditza erabili zuen** (3); **aditza erabili zuen** (3); **aditza ere** (3); **aditza ere** (3); **aditza eta** (5); **aditza eta** (5); **aditza ez** (4); **aditza ez** (4); **aditza ing** (3); **aditza ing** (3); **aditza is** (3); **aditza is** (3); **aditza jainkoari** (3); **aditza jainkoari** (3); **aditza osagarria** (4); **aditza osagarria** (4); **aditza partikula** (3); **aditza partikula** (3); **aditzak eta** (3); **aditzak ez** (6); **aditzak ez zuen** (3); **aditzaren bitartez** (3); **aditzaren morfologia** (3); **aditzari lotuta idaztea** (4); **da aditz** (5); **edo aditza** (3); **edo aditza** (3); **eta aditz** (8); **eta aditza** (8); **eta aditza** (8); **eta aditzak** (4); **euskal aditza** (5); **euskal aditza** (5); **euskal aditzaren** (7); **h aditza** (3); **h aditza** (3); **ikusi aditza** (3); **ikusi aditza** (3); **izan aditza** (4); **izan aditza** (4); **subjektua aditza** (3); **subjektua aditza** (3); **zen aditz** (3)

---

aditzaile *(orobat **aditzale**)* **1** *iz* entzulea.

Hau frantsesez mintzatu zen: 400 bat **aditzaile** baginen, apez eta apezgai. Marzel Etxehandi

ELizak ez duela ardura okasionerik Kristoren Berri Onaren hedatzeko **aditzaile** eskasez, horra hor **aditzaileak**, eta zer ixiltasun eta bildutasunean! Herria

Aditzaleek ere arras ongi ulertzen zuketen, predika aulkitik boz ozentsu batek zabaldu erakaspena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 *aditzaile onari*

Aditzaile onari, hitz gutxi! Jon Muñoz

---

aditzale ik **aditzaile**.

---

aditzaurreko *izlag* aditzaren aurrekoa.

Aditzaren eta **aditzaurreko** bilakaturiko partikularen aglutinazioz. Isabel Arrigain

---

aditze *iz* entzutea.

Gure bihotz gaixoak, munduko sorkari harrigarriak, bizi bizian bertatik bertara sumatze, ikuste, **aditze**, ukitze, eskuratze... Patziku Perurena

Aldekoen kemena eta kontrakoen izua pizten zuen Montogommeryren izena **aditze** hutsak. Aingeru Epaltza

Beste batzuei buruko mina jartzen zaie "Euskadi" edo "Euzkadi" **aditze** hutsarekin. Bernardo Atxaga

Aditze hutsaz pizten dute jendearen mirespena eta errespetua. Aingeru Epaltza

Ba omen zuen iragan mendeko sendagile anatomistak bizi izandako istorio tristearen **aditze** lanbrotsua. Anjel Lertxundi

Bi autoritate horiek bat egitean, halako elkar **aditze** bat etorri zen. Iñaki Iñurrieta

-Nik ez dut liburu hori irakurri -esan zuen neskaren amak-, baina badut bere **aditzea**. Aitor Arana

Inkomunikazioa gainditu dugu eta hori oso gauza garrantzitsua da epe erdira lasaitasuna, egonkortasuna eta elkar **aditzea** zabaltzeko. Berria - Euskal Herria

Baldin haurrari gozo bazitzaion aitaren ikustea eta **aditzea**, ez bide zen gutiago hunen bozkarioa, egunetik egunera hobeki ezagutzen zuelarik, Jainkoak ondokotzat eman zion herritar gaztearen kar saindua. Xipri Arbelbide

Aditzearen forma huts gisa aurkezten diren hauek sentimenean emandako anizkunkia determinatzen dute. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aditze hutsak (5); **elgar aditze** (3); **elkar aditze** (3)

aditzea aski (3); **aditzea ere galaraziko** (4); **aditzea izan** (4); **elgar aditzea** (3); **elkar aditzea** (6); **ez aditzea** (5); **haren aditzea** (4); **horren aditzea** (5); **kontuak aditzea** (3); **trumoiak aditzea ere** (4); **zeruko trumoiak aditzea** (4)

hori aditzeak (3)

aditzerik ez (4); **aditzerik izan** (3); **haren aditzerik** (3); **horren aditzerik** (5)

aditzetik beretik (3)

---

aditzeko *izlag* aditzea merezi duena.

Gaur ere, plazer baduzu, beharko duzu goiza berandu azken lekukotasuna **aditzekoa** baitugu eta ezin huts egina baita nahiz eta aitzineko hiruek bazuten beren erakaspen sarkorra. Michel Oronoz

Ikustekoak eta **aditzekoak** izaten dira, habian dagoen ama gaixoak, kukuak erasotzean hasten dituen garraixiak eta karramixtak; hura bai izaten dela lastimagarria! Patziku Perurena

---

aditzez *adlag* entzutez.

Hori, noizbait irakurri ditugun idazleetara mugatuz gero; **aditzez** ezagutzen ditugunak hartuz gero, hogei, berrogei edo gehiago izan litezke nolabaiteko kidetasun zodiakala dutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

"Ez dira aspertuko zure belarriak aingeruen soinu eta kanta gozoak **aditzez**, eta milioika joango zaizkizu urteak, denbora apur bat baizik ez balira bezala. Anjel Lertxundi

---

aditzoin *iz* aspektu markarik gabeko aditz forma.

Osagai hori **aditzoin** batekin parekatu zen. Isabel Arrigain

Baina **aditzoina** aldatu gabe ere (demagun, *take* "har" bezala), elementu honek beste hainbat forma har ditzake, esaterako *takes* "hartzen du", *has taken* "hartu du", *will take* "hartuko du", *has been taken* "hartua izan da", *is being taken* "hartua (izaten ari) da", eta abar. Itziar Laka

---

aditzondo *iz* adberbioa.

Adibidez, *Pirots karulize elatically* "piroteak elatikoki karultzen dira" hurrenkeran, badakigu hitz horiek izena, aditz eta **aditzondoa** direna, s "ak", ize "tzen" eta ly "ki" elementuen bitartez. Itziar Laka

Izena bera ere, Mykael hebreerazkoa, 3 hitzez osatua dator: My, "nor" izenordekoa, Ka, "bezain" edo "bezala" **aditzondoa** duguna, eta El, hainbat hitz hebreerazkoetan ageri den "Jainko". Pello Zabala

Munduko mintzaira guzietan aurkitzen dira izenak, izenordainak, aditzak, **aditzondoak**, eta abarrak; horiek mintzairaren gramatika bereziak kudeatzen dituela. Herria

Izenondoek eta **aditzondoek**, euskaraz, bikoizteko ahalmena dute, modu horretan esanahia maila nabarmenago batean adierazten delarik. Iñaki Arranz

---

adiuntza *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* sasoia, garaia.

Nola uka gu, oraindik ere, **adiuntza** horretan garenik; eta tresna gabe (alegia, euskera baturik gabe) urrats hori bera egiterik ez daukagula? ETC-literatura, saiakera

Shock-**adiuntza** hauetan, bakearen eta segurtasunaren aitzakian, estatu poliziala indartu da berriz ere gure inguruan; eta, berdin zaie kontrolatzaileei herritarraren azalaren kolorea, ezpainen tamaina edo ilearen tintura... kontrola da Jainko. ETC-prentsa

---

adiurre *iz* aiurria.

Inork ezin du oinarritu, ordea, zenbat egozten zaion askatasunaren efektu hutsari, zenbat izadi soilari eta **adiurrearen** akats errugabeari, edo bere antolaera zoriontsuari (merito fortunae), eta hainbestez, inork ezin du zuzentasun osoaren arabera epaitu. Ibon Uribarri

---

adivasi *iz* Indiako tribu eta etnia multzoa.

Jauntxoak haien lepotik bizi dira eta **adivasiei** beren eskubideen kontzientzia ematen dienak ondorio gaitzak paira litzake. Gotzon Garate

---

adixkidantza ik **adiskidantza**.

---

adixkide ik **adiskide**.

---

adixkidetasun ik **adiskidetasun**.

---

adixkidetu ik **adiskidetu**.

---

adixkidetza ik **adiskidetza**.

---

adixkidetze ik **adiskidetze**.

---

adizio[1] *(orobat **adizione**) iz* batuketa.

Beha egoiterik beltzena, satanki organizatua, arratseko deia da Gizonak lanetik jinak, anitzak afaltzekoak -afaria, eguneko apairu bakarra- 25/30 000 gizonek hantxet beha

egon behar oren bat, edo bi edo berdin hiru, **adizione** huts bat zuzendu arte, edo norbait falta delarik, haren bila ibilirik Jainkoak daki non zakurrekin, triste hark deia entzun ez duelakotz, eta aurkituko dutelarik, zakurrak ehausika aztaletan ekarriko dute, orduan bilduko baitu makil ukaldi ederrik. Marzel Etxehandi

---

adizio[2] ik **adikzio**.

---

adizkera *iz* aditzaren era.

Ez liguke balioko ihardesteak berba hori ez dela konjugatzen lehen edo hirugarren erro ahulekoen atzera, salbuespeneko **adizkera** batzuk, analogiari jarraiki gabe, arautik saihesten direlako, batez ere aditz ahul hauetan. Xabier Kintana

Willem, berriz, taxuera bereziko euskal **adizkerak** eta esamoldeak logikaren araberako ereduez ulertu eta menderatu nahian. Anjel Lertxundi

---

adizki 1 *iz* gramatikan, pertsonari dagokion aditz jokoko formetako bakoitza.

Orain arteko *etorren, ekien* eta *ebilen* **adizkiak** , *zetorren, zekien, zebilen* bilakatu dira. Koldo Zuazo

NOR saileko **adizkiak** ziren salbuespena. Koldo Zuazo

Nor-Nork saileko **adizkietan** . Koldo Zuazo

"Joan banadi" eta "joaten banaiz" **adizkien** arteko desberdintasunaz jabetzen ez denak ez omen daki euskaraz. Pello Salaburu

Ondo oroitzen naiz goiz batean nola erakutsi zidan, ordu erdian, euskal **adizkien** eraketa. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Azkoiti-Azpeitietan bokal-elkarketetako aldaketek (ea: ie; oa: ue; ua: ue), eta **adizki** bereziek (dute: debe; zuten: zeben) bertsoetan islarik duten erreparatuko dugu. Berria - Kultura

Gaur egun, ostera, *det* tankerako **adizki** giputzak euskara jasoan ez ezik, eguneroko jardun arruntean ere ohikoak dira Errenterian. Koldo Zuazo

Nonahi ari dira sortzen **adizki** berriak. Koldo Zuazo

Adizki soilak baztertu eta kate luze bihurtzen diren aditz lokuzio horiek guztiak. Iñigo Aranbarri

Erdal obra baten egokitzapena den honetan, esate baterako, ez da **adizki** jokaturik behin ere erabiltzen: [...]. Iñaki Arranz

Giputzen jarrera txokozalearen adibide jakin bat aipatu zuen Mitxelenak, hitanoko **adizkiei** zegokiena. Koldo Zuazo

Euskaltzaindiak aurkeztutako ereduan, 1973an zukako **adizkiak** aukeratzean erabilitako irizpide berberak hartu ziren gogoan. Koldo Zuazo

Bizkaiko herri batzuetan batez ere, orainaldiko **adizkiei** -n gehituaz eratzen dira iraganaldikoak. Koldo Zuazo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adizkien ordez** (4); **duten adizkiak** (3); **en adizkiak** (3); **hitanoko adizkiak** (3); **izan en adizkiak** (3); **saileko adizkietan** (3); **tankerako adizkiak** (3); **tankerako adizkien** (3)

---

adizkitegi *iz* gramatikan, aditz baten adizkiak biltzen dituen taula.

Bestelako osagarririk ere badu liburuak: lehen bertsolerroen zerrenda alfabetikoa, antroponimo eta toponimoen zerrenda, aztertutako hitzen zerrenda eta **adizkitegia** , bibliografia, Perez de Lazarragarekin zerikusia duten argazkiak eta irudiak. Berria - Kultura

---

adizlagun *iz* adberbioa; euskal gramatikan, orobat, adberbio betekizuna duen izen kasu atzizkiduna.

Euskara giputzean eta Nafarroako sartaldean **adizlagunetan** erabiltzen da atzizki hau. Egin dezagun hipotesi ez oso akademiko bat: pixka hitzetik eratorria den pixkaka **adizlaguna** hain gutxitan erabiltzearen arrazoia ez al da, bada, pis caca (pixa, kaka) hitzekiko homonimia zakarra? *P-nîm* leku- **adizlaguna** ere bada ('aurrean' esan nahi duena), arabieraz *-'am-m* (edo-*bayna yadayka* 'zure presentzian', hitzez hitz 'zure esku artean'). Koldo Zuazo

Era berean, *p-nîm* denbora- **adizlaguna** da 'lehenago, aurretik' edo 'behiala, antzina' esangurarekin. Xabier Kintana

---

adiztegi *iz* aditz taulen multzoa.

Joanesen lehen liburuak halaz, euskal **adiztegi** osoaren oinarri eta paradigma gisa kontsideratu Iditegiko aditza zuen aztergai. Itxaro Borda

Udako Ikastaroan bi aurkikuntza egin nituen: lehenengoa, etxeko hizkera arrazionalizatzeko metodoa, konturatzea bazirela ortografia bat eta **adiztegi** bat, euskararen sistema komun batean sartzen zirenak, baina tokian tokiko aldaerak zirela biziak eta aberatsak. Ana Urkiza

---

adizu ik **aizu**; **aditu**.

---

adizue ik **aizue**; **aditu**.

---

adjariar *(orobat **adjariatar**)* Adjariako biztanlea.

Zubiak eztandarazteaz gain, hainbat errepide moztu eta trenbidearen zati bat desegin dituzte **adjariarrek** azken egunotan. Berria - Mundua

Hala, **adjariatarrek** bertako kontseilua osatzen duten 30 kideak hautatuko dituzte gaur. Berria - Mundua

---

adjektibatu, adjektiba(tu), adjektibatzen du *ad* adjektiboz hornitu.

Entzutea eta harritzea, bat izan zen, sindikatua era ez ohikoan **adjektibatu** zuelako: "el sindicato ultraderechista". Iñigo Aranbarri

Hala erabiltzen ditugu gero, entzundakoaren arabera, **adjektibatuta** sarritan, eta hala osatzen dira ideologiak. Iñigo Aranbarri

Prezisiorik gabe **adjektibatzeari** buruzko arriskuez ohartarazten gintuen. Anjel Lertxundi

Eta gero arrazak -"historikoak" bezala **adjektibatuak** bai, baina arrazak- deklaratzen dira historiaren bizkarrezurra! ILaster hasi nintzen "organización" izenaren atzeko berbari soilik puntu erdia eskaintzen; "democracia", ordea, ez dator sekula **adjektibaturik** . Joxe Azurmendi

---

adjektibazio *iz* adjektibatzea.

Entzun dute **adjektibazioak** ez duela arrunkerian erori behar, eta esango dizute orrialde bat gaizki idatzita dagoela baldin eta adjektiboen eta sustantiboen arteko elkarketan ustekaberik ez bada, nahiz xede orokorra gauzaturik egon. Juan Garzia

Nazionalismorik mingotsenak **adjektibazioaren** iluramendura jo zuen atzera ere. Iñigo Aranbarri

Izenburu zuzenean, ordea, edale izatea da funts edo ardatz, eta santutasuna eransten zaion **adjektibazio** edo kalitatea. Matías Mujika

---

adjektibo *(ETCn **2.032** agerraldi; orobat **adjetibo** **48** agerraldi)* **1** *iz* gramatikan, izen bat nolabait mugatzen duen hitza. ik **izenondo**; **izenlagun**.

Morfologia, hitzen kategoria desberdinez (aditz, izen, **adjektibo**, izenordain eta abarrez) arduratzen da, baita flexioaren era desberdinez (aditz joko eta deklinabideaz) ere. Isabel Arrigain

Prentsan, eta menturaz normalean tituluetan ez irakurtzen ohitu garelako, **adjektiboa** beti da deigarri. Iñigo Aranbarri

Adjektiboaren bitartez sendotu egiten du egunkariak irakurleria, lagundu egiten du identitatea eratzen. Iñigo Aranbarri

Kontakizunean **adjetiborik** ez duela erabili adierazi zuen, ez baitzituen behar. Berria - Harian

Adjektiboak estiloaren zimurrak dira. Iñigo Aranbarri

"Beroa" eta "ikusgarria" bezalako **adjektiboez** eginiko klixeak. Iñigo Aranbarri

2 (hitz elkartuetan)

Adjektibo bikote hauetako asko ez dira egunkarietako erredakzioetan sortzen, politikarien prentsa bulegoetan baizik. Iñigo Aranbarri

Formaldatze hau egokiro formulatzen dugunean ikusten dugu **adjektibo** -izen elkartze denak muinetik kanpora ditzakegula, TAdj formaldatzeak txertatzen baititu. Itziar Laka

3 ***adjektibo erakusle*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Gaztelaniaz eta frantsesez ille, illa ('hura') **adjektibo erakuslea** dugu gaztelaniaz el, la eta frantsesez le, la eman dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 ***adjektibo erreferentzial*** *(corpusean ez dago; ETCn **108** agerraldi)*

Eranskin hauetan, euskara zientifiko eta teknikoaren ezaugarriak aztertzeaz gain, era laburrean, lexiko sorkuntzarako bideak eta **adjektibo erreferentzialen** problematika aztertzen dira eta hainbat arazo konkreturi irtenbide praktiko bat ere ematen zaie. ETC-prentsa

Adjektibo erreferentzialak ez daude oraindik; liburuan aipatzen ditut adibide batzuk, lunar eta gisakoak. ETC-prentsa

Gaztelaniazko **adjektibo erreferentzialak** itzultzeko orduan, arau orokor gisa, hitz-elkarketa erabili da, batik bat, kontuan hartuta horixe dela Euskaltzaindiak 25. arauan hobetsitako joera (acto procesal/prozesu-egintza). ETC-zientzia, zuzenbidea

Bigarren partean katalogo moduko eranskinak datoz, zeinetan euskara tekniko-zientifikoaren ezaugarriak aztertzeaz batera, lexiko-sorkuntzarako bideak, **adjektibo erreferentzialen** problematika eta hainbat problema konkreturen soluzio praktikoak ematen saiatu garen, modu laburrean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ez diogu guk Tartasek bezala ogena Arüeko euskarari egotzi nahi, baina zinez aitortu behar dugu, idazketaren garaian, irakurketa ulergarriagoaren mesedetan, ingelesezko **adjektibo erreferentzial** koordinatuak euskaraz hitz elkartuen bidez emateko gure borondateak usu huts egin duela eta maileguen sistemaren aitzinean makurtu beste biderik ez dugula ikusi, euskarazko irakurketak ere, argia, joria eta etenik gabekoa behar baitu izan, ez ataka bihurria. ETC-literatura, saiakera

Intrigatuta gelditu nintzen, ezin gogoratuz aspalditxo irakurritako euskarazkoak zelan zekarren lunar **adjektibo erreferentzial** hori. ETC-literatura, saiakera

Lehenengoa, hitz-elkarketa eta **adjektibo erreferentzialaren** arteko hautua da; esterako, "toki-administrazio" eta "administrazio lokal" terminoen artekoa. ETC-entziklopedia

5 ***adjektibo kalifikatzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Baina hori arras bestelako **adjektibo kalifikatzailea** da. ETC-prentsa

Euskadi eta euskaldunoi buruzko umorea egiten dugu -azaldu du Fernando Rodriguez VSko gidoilari buruak-, besterik gabe, ez dut uste inolako **adjektibo kalifikatzailerik** behar duenik. ETC-prentsa

Lengoaia sexistaren kontzeptua ezagutu baino askoz ere lehenago, berak irakatsi Hemeroteka zidan macho edo machote hitzak **adjektibo kalifikatzaile** positibo gisa ez erabilKurtso berria eta euskara tzen. ETC-prentsa

Horiek horrela, trantsizio energetikoaz dugun ikuskerari hainbat deitura edo **adjektibo kalifikatzaile** gehitu behar dizkiogu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jatorrizko **adjektibo kalifikatzailea** aljebraikoa da, teknika aljebren azterlan orokorretan erabilitako logiketatik sortu baitzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***adjektibo posesibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Debeku horretatik, honek amorrarazten nau gehiena: "bezeroenganako" soilik jarri beharrean, hala bailegokioke, "gure" **adjektibo posesiboa** jarri izanak aurretik. ETC-literatura, saiakera

7 ***edutezko adjektibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Txomin Peillenek ohartarazten dit nola euskal klitxea ez dela Arestiren "Nire Aitaren etxea", 'Aitaren etxea' baizik, **edutezko adjektiborik** gabe. ETC-zientzia, zuzenbidea

-Zure txanponez, noski -ahotsa berariaz behartzen du **edutezko adjektiboa** ebakitzean, esaldi osoa ironiaz zipriztintzeko xedez. ETC-literatura, saiakera

"Mon" frantsesezko **edutezko adjektiboa**, euskaraz "nire" dena. ETC-entziklopedia

8 ***zenbakizko adjektibo*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Gramatikan, zenbatzailea, zenbaketa kopurua edo kantitatea adierazten duen hitza (ikus, gainera, **zenbakizko adjektiboa**). ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adjektibo bat** (3); **adjektibo hori** (3); **adjektibo superlatiboa** (3)

---

adjetibo ik **adjektibo**.

---

adjudikatari *izond* zerbait esleitzen zaiona.

Pribatizazioa eginda, enpresa **adjudikatarien** eta langileen arteko gatazketan zerikusirik ez dutela diote. Berria - Euskal Herria

---

adjudikatu, adjudika(tu), adjudikatzen du *ad* esleitu.

Kontratu garrantzitsuena gelditzen zaio **adjudikatzeko**. orduko 300 kilometrotan eta ibilbide luzeetan ibiliko diren 32-40 trenena. Berria - Ekonomia

Lurrak **adjudikatzeko** lehentasuna izatea nahi dugu. Berria - Ekonomia

Indarrean zegoen ituna deuseztu zen lehiaketa publiko batek baimentzen ez duen zerbait egiteko: zuzenean **adjudikatu**. Berria - Ekonomia

Bigarren itun bat bultzatu zuten aurretik kontratista bat aukeratu eta zuzenean **adjudikatu** ahal izateko. Berria - Ekonomia

Atzo **adjudikatutako** abiadura handiko Brava trenak, lau bagoikoak dira, guztiak motordunak, trakzio elektrikoarekin eta lau megawatteko potentziarekin. Berria - Ekonomia

---

adjudikazio *iz* esleipena.

Abiadura handiko 75 tren egiteko bi **adjudikazio** eta haien mantentze lanen kontratua lortu du Beasaingo CAFek eta Alstom konpainia frantziarrak osatutako partzuergoak Espainiako Renferekin. Berria - Ekonomia

Bi konsorzioen artean banatuko litzateke **adjudikazio** hau. Berria - Ekonomia

Txingudiko plantako obren **adjudikazioa** etzi onartuko dute. Berria - Euskal Herria

Igerikaleku bat ere izanen dute herrian luze gabe, obraren **adjudikazioa** jada egina da eta Udalak baderamatza xede horiek beretik. Herria

Nafarroako Parlamentuan ikerketa batzorde bat antolatu zen, irrati lizentzien banaketan irregulartasunak izan zirelakoan, eta Nafarroako Gobernua **adjudikazioak** berriz aztertzera gonbidatu zuen Parlamentuak. Berria - Euskal Herria

Adjudikazioaren arabera, ekoizpenaren %85 Espainian egin behar zuen Siemensek eta, ondorioz, Alstomekin eta CAFekin akordioa egin zuen. Obren **adjudikazioari** oniritzia emateko, Administrazio Kontseiluaren hiru laurdenen aldeko botoa behar da. Berria - Ekonomia

Beasaingo tren konpainiak 1.590 milioi euroko eskaera zerrendarekin itxi zuen 2003ko ekitaldia, eta aurtengo apirilean zerrenda hori 2.335,7 milioi eurora igo da, abiadura handiko trenen Renferen azken **adjudikazioekin**. Berria - Ekonomia

2003 amaieratik hona, hainbat **adjudikazio** garrantzitsu ere lortu ditu CAFek. Berria - Ekonomia

---

adjudikaziodun *(corpusean ez dago; ETCn **101** agerraldi) iz* adjudikazioa eman zaiona. ik **esleipendun**.

265 milioi euroko kontratuen **adjudikazioduna** izan zen Sanchez 2002. eta 2009. urteen artean, PPk agintea duen zenbait administraziotan. ETC-prentsa

Herri lanetako **adjudikaziodunek** ituna zorrotz bete beharko dute, Batzar Nagusiek foru araua onartuz gero . ETC-prentsa

Aitzitik, argudio horiek ukatu ditu ebazpenean, eta argi utzi du Gipuzkoako administrazioak baduela eskuduntza bere kontratuetan betebehar batzuk derrigortzeko **adjudikaziodunei**. ETC-prentsa

Hain zuzen ere, azkeneko 11 **adjudikaziodun** horiek oraingo astean aurkeztu beharko dituzte, udaletxean, bete beharreko guztiak. ETC-prentsa

Badirudi, kontratua adjudikatuta, **adjudikaziodunak** dena ondo eta etikaz egingo duela, eta hori ez da horrela, sektore pribatua kontratatzean kudeaketa hori gertutik zaindu behar delako. ETC-prentsa

Besteak beste, **adjudikaziodunek** aurkeztu dituzten eskaintzak baldintzatuta daudelako finantzaketarekin, eta finantzaketa horrek bankuen onespena behar du. ETC-prentsa

Kanala zabaltzeko lizitazioaren baldintza pleguetan klausula sozialak sartzeko aukera galdu zuen, zeinen arabera, enpresa **adjudikaziodunek**, kontratek eta azpikontratatuek Bizkaiko Eraikuntzaren Hitzarmena derrigorrez bete beharko zuten. ETC-prentsa

Lekukotza titulu askietsia da adjudikatutako finka edo eskubidea erregistratzaile nahiz **adjudikaziodunaren** izenean inskribatzeko, baldin eta lekukotza horrekin batera zamak ezerezteko manamendua aurkezten bada, Prozedura Zibilaren Legeko 674. artikuluak aipatu bezala. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jaraunsleren bat hil eta gero banatzen denean jarauntsia eta hildakoaren jaraunsleei adjukidatzen zaizkienean horren ondasunak, orduan inskripzioa **adjudikaziodunen** izenean egin behar da, baina bertan agerrarazi behar dira gertaturiko eskualdaketak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sailkapen horrek eragina izango du, berebat, konkurtsopekoarekin harreman bereziak dituztenen kredituen lagapen-hartzaile edo **adjudikaziodunen** gain, baldin eta eskuraketa konkurtso-adierazpenaren aurreko bi urteetan gauzatu bada. ETC-zientzia, zuzenbidea

3) Ebikzioa banaketaren osteko arrazoi batek eragin duenean, edo ebikzioa **adjudikaziodunaren** erruz gertatu denean. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

adjuntu *iz* albokoa, laguntzailea.

Hor dabiltza bulegari, uxer eta **adjuntuak**, // alprojen lanpostuetan, jende xeheak pagatuak. Xabier Olarra

---

adlatibo 1 *izond* deklinabide kasuez mintzatuz, noranzkoa adierazten duena.

Adlatiboan *-ra* zein *-rat* eta *-gana* zein -ganat onartu ziren: etxera zein etxerat eta lagunarengana zein lagunarenganat laurak dira Batua. Koldo Zuazo

Aukera hauexek egin dira: soziatibo singularrean *-agaz* eta pluralean *-akaz*, destinatiboan *-entzat* eta hurbiltze **adlatiboan** *-rantz*. Koldo Zuazo

Ez dute uste soziatiboko -kin, destinatiboko *-endako* eta hurbiltze **adlatiboko** *-rutz*, esate baterako, aintzakotzat hartu behar direnik. Koldo Zuazo

2 *adlatibo bukatuzko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Muga-adlatibo edo **adlatibo bukatuzko**, norainokoa adierazten duena eta -raino kasu-atzizkiaren bitartez gauzatzen dena. ETC-entziklopedia

3 *adlatibo destinatibo* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Adlatibo destinatibo, -rako deklinabide-atzizkiaren bidez gauzatzen dena. ETC-entziklopedia

4 *hurbiltze adlatibo*

Hurbiltze adlatiboan Ipar Euskal Herrian erabili ohi diren -rat eta -ri buruz eta Bizkaiko sortaldeko eta Deba arroko -rutz: etxerat buruz zein zuri buruz, alde batetik, eta etxerutz, bestetik. Koldo Zuazo

5 *muga adlatibo* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

5) **Muga adlatiboko** aldaera d-dunak Lapurdiko eta Nafarroa Behereko iparraldean baizik ez zaizkigu ageri, Nafarroa Beherean erdiguneko eskualde zenbaitetarat zertxobait jaisten badira ere. ETC-literatura, saiakera

Denborazko **muga-adlatiboan** -ak artio postposizioa da zabalena (sei oonak artio 'seiak arte', zazpi oenen artio... ETC-zientzia, zuzenbidea

Muga-adlatibo edo adlatibo bukatuzko, norainokoa adierazten duena eta -raino kasu-atzizkiaren bitartez gauzatzen dena. ETC-entziklopedia

---

administradore *(ETCn **80** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **administratzaile** agertzen da) iz* zerbait administratzen duen pertsona.

Iguraia izan nintekeen aita bezala, agian egunen batean Printzearen ondasunetako batean **administradore** bihurtzeko, edo funtzionario sartu, postan, trenbideetan, Gobernuren bateko bulego batean, nork daki. Matías Múgica

Memedia Lunako **administradorea** da. Juan Garzia

Paul Bremer Washingtonek Iraken ezarritako **administradoreak** estrategia hori proposatu zion Etxe Zuriari suniten babesa jaso ahal izateko. Berria - Mundua

Printzearen **administradoreak** ere bai, printzearen lekaioek ere bai. Matías Múgica

Administradore kargua eskaini nionan, hi ostera ikusi beharrez. Juan Garzia

Alabainan, 10 **administradore** horietan. Herria

---

administralgo ik **administrazio**.

---

administrari 1 *iz* administrazioko enplegatua edo langilea.

Hasieran, nire amak eramaten zituen kontuak eta paperak, ordenagailuak iritsi ziren arte, eta orduan, ondo zihoakigunez, **administrari** bat hartu genuen. Juan Kruz Igerabide

Noizean behin etorri eta bazkaltzera gelditzen ziren bisitariei, udaleko edo probintziako ordezkariei edo ehizaldi handietara etortzen zirenei, etxaldearen **administrariak** egiten zien harrera basoko etxean. Xabier Olarra

CDJA-ko presidente/ordea, Lur Berriko **administraria**, SRA ordezkatze zerbitzu burua, Garapen Kontseiluko kidea. Herria

Diputazio probintzialeko **administrarietatik** hasi eta ospitaleko kinina Atocha kaleko botiketan saltzen zuen barneko ikasleen elkarte bateraino, era guztietako saihesbideak zeuden, seguru asko, han. Josu Zabaleta

Paul Bremer Washingtonek Iraken izendatutako **administrari** nagusiak adierazi zuen Ameriketako Estatu Batuek herrialde honetatik alde egin lezaketela, agintari irakiarrek hala eskatuz gero. Berria - Mundua

Badatoz komekatzera ministro kontseiluko behin-behineko lehendakaria oposizioaren burua euskal kostaldeko herrietatik etorritako enbaxadoreak erreginaren **administraria**. Koldo Izagirre

Lehenagotik banuen haren aferen aditzea **administrari** eta bulegariekin. Aingeru Epaltza

Administrariak, enplegatuak, merkatariak, kafetegian besteei aditzen egoten direnak: berrogei urteetara hurbiltzean, kanporantz isuri ezin duten esperientziaz puzturik sentitzen dira. Monika Etxebarria

Arazo psikologikoak dituzten gizonentzako zentro batean, Georgi Lulchev psikiatra, neurologoa, **administraria**, enpresaburua eta zuzendaria da, dena batera. Berria - Kultura

2 (izenondoekin)

Thiboust-Gouron jauna, Lan-Auzitegiko lehendakaria, Bobot jauna, itsas administrazioko **administrari** nagusia. Monika Etxebarria

Kargua utzi du Paul Bremerrek, Ameriketako Estatu Batuek Iraken izendatutako **administrari** zibilak, hala eskatu diolako. Berria - Mundua

Bilera berezian AEBek Bagdaden izendatutako **administrari** nagusi Paul Bremerrek parte hartuko du, besteak beste. Berria - Mundua

Iruñeko Udaleko **administrari** laguntzaile izateko azterketak urriaren 2an hasiko dira. Berria - Euskal Herria

Kafkaren honako hitzak aurkituko genituen, 1907ko urrian **administrari** laguntzaile lanean hasi berria zelarik idatzi zituenak: "Assicurazioni Generalin nago, eta ez dut esperantza galtzen egunen batean urrutiko herriren bateko besaulkietan esertzeko, ofizinaren leihoetatik azukre-kanabera soloak edo hilerri mahomatarrak ikusteko". Pedro Alberdi

Hamaiketan, Prefeta, jai bat ari baitzen ematen, bere kezka agertzen ari zen sei **administrari** txolinen aurrean. Josu Zabaleta

Rocco Sabelli Apriliako **administrari** ordezkariak atzo jakinarazi zuen aztertzen ari direla datorren urtean ez aritzea GP Motoetan. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Espaloi zabaletan, enplegatu eta **administrari** jendetza bizi bizia zebilen. Ramuntxo Etxeberri

Bulegari eta **administrari** istorioak ugari aditu zizkioagu, bere "larrutegi" famatuan, eta hori guztia egiazkoa den sinesteko ere, lanak! Aingeru Epaltza

Bidezaingo Zuzendaritzako **administrari** -ofiziala. Aingeru Epaltza

4 (izenondo gisa)

Seguru ez zarela gutaz gogoratzen, funtzionario **administrari** baten alargun gaixoaz (beti doluz jantzita) eta bere alaba nerabe argalaz. Eduardo Matauko

5 ***administrari laguntzaile***

Iruñeko Udaleko **administrari laguntzaile** izateko azterketak urriaren 2an hasiko dira. Berria - Euskal Herria

Iruñeko Udalerako **administrari laguntzailerako** 2001ean egin ziren oposaketetan, ustez gertatutakoarengatik 12 lagunek epaiketa izan zuten atzo. Berria - Euskal Herria

Eta bertan Kafkaren honako hitzak aurkituko genituen, 1907ko urrian **administrari laguntzaile** lanean hasi berria zelarik idatzi zituenak: "Assicurazioni Generalin nago, eta ez dut esperantza galtzen egunen batean urrutiko herriren bateko besaulkietan esertzeko, ofizinaren leihoetatik azukre-kanabera soloak edo hilerri mahomatarrak ikusteko". Pedro Alberdi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **administrari laguntzaile** (3); **administrari nagusi** (4); **administrari nagusiak** (4); **eta administrari** (3); **iraken izendatutako administrari** (4); **izendatutako administrari** (7); **izendatutako administrari nagusi** (3); **paul bremer administrari** (4)

---

administraritza *iz* administrazioa.

CCOO, EILAS, ELA eta LAB sindikatuek EHUko gerente Txaber Andetxagak eta Manu Montero errektoreak negoziazio kolektiboan **"administraritza** eta zerbitzuetako langileekiko izaten ari diren jarrera" gaitzetsi dute. Berria - Ekonomia

Administraritza eta enpresa kudeantza sailean 231 ikasle ditugu jaz bezala. Herria

Ihardetsi dutenen %40 aholku galdatzaile dira dela informatikaz eta teknologia berriez, dela **administraritza** eta finantza sailetan. Herria

Hango zuzendaritza eta **administraritzaren** ustelkeriaren batzuk salatu zituelako mendekua hartu zioten. Jokin Urain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **administraritza eta** (4)

---

administratibo 1 *izond* administrazioarena, administrazioari dagokiona.

Tipo horren lana Frantziako auzapez batena da azken finean, pentsatu zuen Mikelek: dokumentazio **administratiboaz** arduratzen baitzen. Ramuntxo Etxeberri

Alpeetako hiri turistiko batean bizi ginen, nire senarrak kargu **administratibo** bat zuelako han. Joseba Urteaga

Helegite **administratiboa** jarri dute, baina ez dute auzibidea baztertzen. Berria - Euskal Herria

Prozedura **administratibo** bat abiatua dugu jadanik. Herria

Inkestak hiru atal **administratibotan** banaturiko errealitatea erakusten du. Berria - Harian

Ezberdintasun ideologikoen eta zatiketa **administratiboen** eta politikoen gainetik. Berria - Euskal Herria

Isiltasun **administratiboa** ere erantzuteko modu posibleen artean zegoela. Xabier Mendiguren Elizegi

Aseak dira Herriko Etxeak ezartzen dizkien "oztopo **administratiboez**". Berria - Euskal Herria

Auzi **administratibo** gisa tratatu behar dugu, isun bat ez ordaintzeagatik atxilotu balute legez. Josu Landa

Txostenak aitortzen du legeak ez duela deus esaten indarrean sartu aurretiko ekintza **administratiboei** buruz. Berria - Harian

Atxiloketa **administratiboa** izan zen. Berria - Harian

Dialloren kartera pistola batekin nahastu zutela deklaratu ondoren ez dute isun **administratibo** single bat berbera ere jasan. Harkaitz Cano

Zigor **administratibo** latzak jasan zituzten, zergei muzin egiteagatik. Berria - Kirola

Ikasle Abertzaleek kondenari uko egin eta JMA irakaslearen jarrera eta azken erabaki **administratiboak** kritikatu dituzte. Iban Zaldua

Planifikazio eskumena dute eta errausketaren aldeko pauso **administratiboak** egin ditzakete, baina ez dituzte egin. Berria - Euskal Herria

Ez da boikota, baizik eta butxadura **administratiboa** sortzeko kanpaina. Berria - Gaiak

Gerora, autonomia lortu ondoren, ikusi ahal izan dugu gaitasun eza, utzikeria eta harrokeria **administratiboa** ez direla Espainiako hiriburuaren ondasun esklusiboa. Ramon Saizarbitoria

Muga **administratiboa** badago Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren artean. Berria - Harian

Euskalkien banaketa eta banaketa **administratiboa** ez datoz bat. Berria - Euskal Herria

Euskal barruti **administratibo** berezia antolatzea zen haren eskabide nagusia, gaur ere lortu gabe jarraitzen duena: euskal departamendua. Koldo Zuazo

Eremu **administratibo** bakoitzak bere argibide taula dauka erakusketan. Berria - Euskal Herria

Eremu politiko eta **administratibo** ezberdinetan zatiturik eta urturik, Euskal Herria herri ukatua da. Berria - Harian

Gizartean elkarbizitzarako eredu berriak garatzen ari direla azpimarratu du, eta eredu horiek esparru juridikoaren eta **administratiboaren** erantzuna behar dutela gaineratu. Berria - Euskal Herria

Izaera **administratiborik** ez duen Ipar Euskal Herrian, herrialdea ez bada, Frantzia da hurbileko identifikazioa. Berria - Harian

Ipar Euskal Herriari dagokionez, "berezko entitate **administratibo** moduan existitzen ez denez", hiru herrialdeetarako departamendua antolatzeko apustua egiten du Batasunak. Berria - Ekonomia

Gaur egun Bretainiako lurralde **administratiboa** osatzen duten lau departamenduetan. Herria

Betekizunen banaketak honela laburbil zitezkeen: Bilbok hiriburu ekonomikoa izan behar zuen, Gasteiz hiriburu **administratibo** ezarri zuten, Iruñea beti geratuko zen hiriburu historiko-utopikotzat [...], eta Donostia... Donostiari kultur hiriburutza zegokion. Iñaki Iñurrieta

Herriaren banaketa **administratiboak** hizkuntzan ere bazuen oihartzuna. Koldo Zuazo

Palestinarrei zenbait eskumen **administratibo** eman zaizkie, baina, aldi berean, bantustan-etan edukitzen dituzte, eta hesiak egoera hori egonkortzen du. Berria - Harian

Garapen Iraunkorrerako tresna egokia da Agenda-21, tokian tokiko arazoei kudeaketa **administratibo** horizontelen eta herritarren parte hartzearen bidez egiten baitie aurre. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Departamenduko auzitegi **administratiboaren** aitzinean prestatzen ari dute momentu hauetan. Herria

Zuzenbide **administratiboan** bere ospea duen Tomás Ramón Fernández irakasleak, berriz, honako hau: [...]. Joxerra Garzia

Preso **administratiboak** ziren gehienak, hots, inolako auzipetzerik gabe kartzelaratu zituztenak. Iñigo Aranbarri

Zerbitzu juridiko-**administratiboak**. Berria - Euskal Herria

Kultura arloko ikuspuntutik begiratu eta nazio bat osatzen duela Euskal Herriak ez da dudarik, baina lurraldetasun politiko-**administratiborik** gabe. Berria - Kultura

Herri honen historian eta literaturan mendeetan agertu izan delako, egoera politiko eta **administratiboak** aldakorrak eta ezberdinak izan arren. Berria - Euskal Herria

2 *iz* administrazioko enplegatua.

Akusatuek 2001. urtean 47 **administratibo** postu betetzeko deitu ziren oposizioetan hartu zuten parte. Berria - Euskal Herria

3 ***banaketa administratibo***

Herriaren **banaketa administratiboak** hizkuntzan ere bazuen oihartzuna. Koldo Zuazo

Autodeterminazio eskubidearen subjektua Euskal Herri osoa da, baina horren aplikazio esparruak oraingo **banaketa administratibo** politikoaren araberakoak izan daitezke. Berria - Euskal Herria

4 ***egintza administratibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **69** agerraldi)*

Aholkularitza enpresak eginiko txostenak aldundiko Ogasunera bidaltza ere onartu dute -beharrezkoak diren **egintza administratiboak** egin ditzan-. ETC-prentsa

Erabaki hau, garrantzirik gabeko **egintza administratibo** xumetzat hartu izan zen arren, benetan gaindikotasun handikoa dela esan beharra dago. ETC-prentsa

Casadoren alderdiak proposatu du gaztelaniaren erabilerari buruzko lege bat egitea, helburu honekin: "Gutxienez gaztelaniaz egindako **egintza administratiboek** izango dute izaera ofiziala". ETC-prentsa

Administrazio-eremuan tradizio bihurtu zen **egintza administratibo** orok aurrekari historiko baten berrespena behar izatea. ETC-literatura, saiakera

Arauak eta **egintza administratiboak** etenik gabe sortzen ari dira gizarte eta ekonomia bizitzako arlo guztietan, hori baita gaur egungo sistema politikoen ezaugarri nabarmenetariko bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gizaki arrunt afektatuarentzat, **egintza administratiboa**, gehienetan, legeak kasuaren gainean ematen duen azken hitza da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egintza administratiboa edo araua eman ondoren, lehiarentzako ondorio kaltegarriak baldin baditu, aurkatzea eskatzeko aukera ematen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pribilegio horrek, nolanahi ere, badu zerikusirik **egintza administratiboak** betearazteko beharrarekin, eta Prozedura Legeko 101. artikuluan jaso da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hori prozedura administratibo kanoniko bat dugu, eta erabakia **egintza administratibo** kanoniko bat izango da, erreskriptu bitartez emango dena. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***emakida administratibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Hiltegia kudeatzeko modu egokiena **emakida administratiboa** sortzea dela azaldu dute. ETC-prentsa

18/2007 Ebazpena, uztailaren 30ekoa, lurreko uhinen bidezko telebista digitala eskaintzeko zerbitzu publikoa zeharka kudeatzeko kontratuari dagozkion **emakida administratiboen** esleipenari buruzkoa. ETC-literatura, saiakera

Eta, gainera, esan liteke inplizituki jasoa dagoela interes publikoko zerbitzuak emateko partikularrei egiten zaizkien **emakida administratiboen** legerian. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta, jakina, irrati "piratak" -maiztasunik erabiltzeko **emakida administratiborik** gabe zeudenak dialean-, emankizun lizentzien zain zeudenak, bereziki Bilboko hirigunean, eta baita "libre" izenekoak ere, tokiko izaera zutenak eta ordezko programazioa, gehienetan euskaraz, igortzen zutenak. ETC-entziklopedia

6 ***esleipen administratibo*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Plataformako kideen ustez, **esleipen administratibo** horretan irregularkasunak daude: "Lur eremu horren erabilera zehaztu behar lukeen Plan Berezia onartu aurretik eman baitzioten proiektua enpresa horri". ETC-prentsa

7 ***kontentzioso-administratibo*** *izond* prozesuez eta helegiteez mintzatuz, Administrazio publikoaren egintzen aurka egiten dena.

Espainiako Entzutegi Nazionalaren atal **kontentzioso-administratiboan** helegitea jartzeaz gain, Espainiako Ingurumen Ministerioko sei karguren aurkako kereila kriminala ere aurkeztu zuen. Berria - Euskal Herria

Aurki beste helegite **kontentzioso-administratibo** bat aurkeztuko du EAEko Justizia Auzitegi Nagusian. Berria - Euskal Herria

8 ***unitate administratibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **102** agerraldi)*

Unitate administratiboa, banaketa administratiboa edo zatiketa administratiboa, estatuek administraziorako sortutako estatu azpiko unitate geografikoa da. ETC-entziklopedia

Unitate administratibo horietan Nafarroa Aragoiko eta Gaztelako probintzia batzuekin batera dagoelako (edo unibertsitate-barrutiaren kasuan, oso berriki arte) eta ez, sortu nahi den elizbarrutiarekin bezala, beste euskal herrialdeekin. ETC-literatura, saiakera

Gaiak sailei edo berorien azpikoak diren **unitate administratiboei** egoki dakizkieke; helegite eskubidea bermatua egon behar da. ETC-literatura, saiakera

Ekimena hankamotz eta herio mehatxuarekin sortu da; **unitate administratibo** desberdinetan diren ahaideen faltan eta espainiarrek kontra egiteko artilleria guztia erabiliko dutenaren ziurtasun osoarekin. ETC-prentsa

Marmari taldeak ohartarazten du zirkuito elebidunik ez baina euskara-gaztelania itzulpenerako **unitate administratiboak** jarriko direla. ETC-prentsa

Guretzat ditugu Donetsk eta Luhansk antzinako eskualdeetako **unitate administratibo** guztiak. ETC-prentsa

Adierazpen, proiektu eta asmoez harago, **unitate administratibo** berria sortu du lauko gobernuak, "LGTBI komunitateari arreta eta babesa eskaintzeko, eta eskubide berdintasuna sustatzeko xedez". ETC-prentsa

Hori guztia aurrera eramateko, legez besteko proposamenaren bidez, "pentsioen osagarriak kudeatuko dituen **unitate administratibo** espezializatu bat" sortzeko eskatuko dio Jaurlaritzari. ETC-prentsa

Azkenik, **unitate administratibo** espezializatu bat sortzea pentsio osagarriak kudeatzeko. ETC-prentsa

Kokapen-seinaleak honetarako erabil daitezke: bi estaturen arteko mugak adierazteko, edo estatu barruko bi **unitate administratiboren** arteko mugak, herri baten izena, ibai bat, portu bat, toki bat, edo antzeko beste inguruabarren bat adierazteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nafarroako Gobernuak Iruñean euskara-gaztelera itzulpen ofizialeko **unitate administratiboa** sortuko du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nafarroako Gobernuko eledunaren menpean **unitate administratibo** bat egonen da, Nafarroako Gobernuko Eledunaren Bulegoa deitua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, erromatar probintzia bat ez zen **unitate administratiboa**; aginte militar bat zen, eta zehaztua eta norbaiti esleitua izan behar zuen existituko bazen. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *zatiketa administratibo*

Zalantzarik gabe, Euskal Herriaren **zatiketa administratiboarekin** dauka horrek zerikusia. Koldo Zuazo

Zatiketa administratiboarena jan-jana dugulakoa, ez da oraingoa. Iñigo Aranbarri

Aurrera begira, halakorik errepika ez dadin, "Euskal Herrian indarrez ezarrita dagoen **zatiketa administratiboa** gainditu» behar da, erakunde euskaltzalearen ustez. Berria - Euskal Herria

Bestea: "Aurretik dauden edo berriki sortzen diren **zatiketa administratiboek** ezin dute oztopo izan hizkuntza suspertzeko». Berria - Harian

Zatiketa administratiboa ere aintzat hartzen du egitasmoak. Berria - Kultura

10 *zuzenbide administratibo*

Udalak txosten bat eskatu zion **Zuzenbide Administratiboko** irakasle bati. Berria - Harian

Eta **zuzenbide administratiboan** bere ospea duen Tomás Ramón Fernández irakasleak, berriz, honako hau. Joxerra Garzia

Hala, zigor zuzenbidera jo beharrean Vok **zuzenbide administratibora** jo bazuen, irabazteko gehiago izango zukeela esan zuen Gobernuak. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

admginistratiboa eta (3); **administratibo bat** (9); **administratibo bati** (3); **administratibo eta** (10); **administratibo guztiak** (3); **administratibo hori** (4); **administratiboa aurkeztu** (3); **administratiboa ez** (5); **administratiboa jarriko** (3); **administratiboa jarriko du** (3); **administratiboak eta** (7); **administratiboen gainetik** (3); **auzitegi administratiboak** (6); **auzitegi administratiboan** (4); **auzitegi administratibora** (3); **banaketa administratiboak** (3); **barruti administratibo** (3); **eremu administratiboak** (3); **eta administratibo** (3); **eta administratiboak** (6); **isiltasun administratiboa** (3); **juridiko administratibo** (3); **juridiko administratiboak** (3); **muga administratibo** (4); **muga administratiboa** (3); **muga administratiboak** (6); **neurri administratibo** (3); **paueko auzitegi administratiboak** (3); **politiko administratibo** (5); **politiko administratiboa** (3); **politiko eta administratibo** (3); **politiko eta administratibo** (3); **tresna administratibo** (3); **zatiketa administratiboa** (4); **zigor administratiboak** (3)

---

administratiboki *adlag* administrazioaren aldetik.

Esan ohi den moduan, gaurko Euskal Herria gizarte desintegratu bat da **administratiboki**, politikoki, sozialki, linguistikoki, kulturalki. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

administratiboki araban (3); **eta administratiboki** (6); **trebiñ u administratiboki** (3)

---

administratu, administra(tu), administratzen **1** du *ad* erakunde edo pertsona baten onsasunak kudeatu; egiteko baten antolaketa arazoen, diru gorabeheren eta kidekoen arta izan. ik **kudeatu**.

Gizon aberatsa eta eskuarte handikoa izatera iristen banaiz, guztiz bestela jokatuko diat: sukaldaria edukiko diat, bai, eta erosotasun guztiak etxean, baina behar bezala **administratuko** ditiat ondasunak. Jose Morales

Dekanoak berak badu aurrekontu bat, eta berak **administratu** behar du diru hori uste duen modurik egokienean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horrek ez du esan nahi feudoak zituztenek familiburu on gisa gobernatzen zituztenik; eta nahiz eta gizon libreak feudoak edukitzen saiatu, halako ondasunak gaur egun usufruktuak **administratu** ohi diren bezala tratatzen zituzten. Iñaki Iñurrieta

Britainia Handiak, adibidez, Konstantinoplako sultanaren izenean Zipre **administratu** zuen 1878tik eta Egipto 1882tik aurrera. Iñaki Mendiguren

Gauza jakina da Estatuak burujabe izateko interesa duela, diru publikoak ondo **administratuta** egon daitezen, bere dirua ez dadin irten beste herrialde bat aberasteko. Iñaki Iñurrieta

Baina kontua da nik orain litro bat berbena-ur dudala nire gelan, eta ondo **administratu** nahi dudala. Anjel Lertxundi

Gobernu zentralak eskualde eta probintzia ekoizleekin elkarlanean **administratuko** ditu petrolioa eta gasa, irabaziak era egokian banatuko diren baldintzarekin. Berria - Harian

Southwooden esanetan, Beagle 2 misioaren aurrekontua ez zen behar bezala **administratu**, eta dirua berandu iritsi zen. Berria - Gaiak

2 (era burutua izenondo gisa)

2003. urtean 892 milioi eurotan hazi ziren baliabide **administratuak**, aurreko urtean baino %9,3 gehiago. Berria - Ekonomia

Alde biko trukeen kudeaketa **administratu** horrek ordea emaitza mugatuak izan zituen, eta 1994an merkataritza- tentsioak areagotu zituen. Koro Navarro

3 (era burutua izen gisa)

Haren zakarkeria kontrolatuak, berriz, ordenaren zerbitzariek **administratu** arruntekin ohi duten jokamoldearen urrintto nahastezina zuen. Aingeru Epaltza

Horrela, bai Administrazioak eta bai **administratuok** jakingo dugu zer lehenesten den, eta baita laguntzak banatzeko erabiltzen diren irizpideak zein diren ere. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

administratzen du (4); **administratzen duen** (4); **administratzen duten** (4); **berak administratzen** (3); **berak administratzen duen** (3); **botere gorena administratzen** (4); **gorena administratzen** (4)

---

administratzaile **1** *iz* adierazten dena administratzen duen pertsona.

Don Pedro zen etxearen **administratzailea**, hark kobratzen zituen alokairuak eta asko eta gogo beroz hitz egiten zuen markesaz eta haren lursailez. Josu Zabaleta

Ismailengana joan zen, jauregiko **administratzailearengana**. Fernando Rey

Gure langile zen sasoitik ezagutzen dut, kanpoan genuen egur-biltegiko kontulari eta **administratzailea** baitzen. Urtzi Urrutikoetxea

Administratzaileari eskatzen zaiona leiala izatea da. Elizen arteko biblia

Bere jauregiko buru egin zuen eta bere ondasun guztien **administratzaile**. Elizen arteko biblia

Aurrena, idazten eta irakurtzen ozta-ozta zekien morroi arrunt bat besterik ez zen izan; hurrena, emaztetzat hartu zuen Agashka izeneko giltzainen bat, zeina etxekoandrearen kuttuna baitzen; gero, bera izan zen giltzaina; eta azkenean, **administratzaile** izendatu zuten. Jose Morales

Beraz, gauzak garbi daude -erran zigun aitonak, jaun **administratzaileak** testamenta irakurriz gero-: jauregia eta olak, eta haien administratzeko ardura, Martinentzat; urroztarren dorretxea eta borda, berriz, Joanikotentzat. Joan Mari Irigoien

Administratzailearen bulegoko zerbitzari konfiantzako batek zabaldu, aztertu, eta hautatzen zizkion gutunak. Xabier Olarra

Beheko dendariak ez digu gehiago fidatu nahi, eta azken abisua dela esan dit **administratzaileak**, zor ditugun hilabeteak ordaintzen ez badizkiogu, sentitzen duela, baina... Iñaki Iñurrieta

Nik, Fulgor Sedanok, 54 urteko gizona, ezkongabea, lanbidez **administratzailea**, auziak abiarazi eta jarraitzeko gai, ahalez eta neure zuzenbidez, honako eskabide-azalpen hauek egiten ditut...[...]. Juan Garzia

2 (izenondoekin)

Administratzaile judizialak SAFAM erosteaz interesatua litekeen italiar sozietate bat igurikatzen zuen joan den astean. Herria

Paul Bremer amerikanoak derabila oraino Irakian bere **administratzaile** zibilaren kargua baina ez du horrek beti irauten ahal. Herria

Negozio-gizon zuhurra, baina **administratzaile** burugabea. Askoren artean

Jar itzazue guztiok zeuen dohainak besteen zerbitzura, Jainkoaren hainbat eratako dohainen **administratzaile** zintzo bezala. Elizen arteko biblia

Bi herri horietako andre euskaldun batzuek, 1789an, andreek boza emateko eskubidea aldarrikatzen zioten Luis XVI.ari, esanez, arazo publikoen **administratzaile** egokienak direla, haien ustetan, etxeetako ekonomia administratzeko esperientziarik handiena dutenak. Pello Salaburu

Zeren eta ordu arte bera izan baitzen nagusi eta **administratzaile** eta nihaur nahi baininduen **administratzaile** berri, landareen, hornizoinen eta bertze salerosien kontuen eramaiteko eta hango eta hemengo erosle zein saltzaileekin harremanetan jartzeko. Joan Mari Irigoien

Bai, ea non aurkitzen duen **administratzaile** on bat: bilau hutsak dira denak. Jose Morales

Gizakiaren estereotipoak dira, oso ironia zorrotzez eta gupidarik gabe begiratuak; hor aurkituko dugu lurjabe zabar arduragabea, etxekoandre goganbehartsua, gazte festazale txoriburua, lurjabe zekena, **administratzaile** alferra, funtzionario ustela, agintari zorrotz errukigabea, aberats okitua, burokrata grisa. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan)

Hona etortzea eta **administratzaile** lanpostu hau hartzea erabaki genuenean, pare bat gau eman genituen edaten, aldekoak eta kontrakoak aztertzen genituen artean. Koro Navarro

Murrizten diat heure **administratzaile**-ardura. Juan Garzia

· Zakurrak baino okerrago tratatzen zituen lur-**administratzaile** gupidagabe baten zerbitzura jarri ziren. Pello Lizarralde

Behingoan antzematen zitzaion etxalde-**administratzaile** guztiek bezalaxe egin zuela gora. Jose Morales

Lambert jauna, Koronelaren lursail-**administratzailea**, zaharra izanagatik, buruargia zen. Mirentxu Larrañaga

4 ***goi administratzaile***

Kortsikan izendatu **goi**-administratzaile eta polizia zenbaitek. Itxaro Borda

5 ***sare administratzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Sare administratzailea konputagailu-sarearen kudeaketaz arduratzen den aditua da. Normalean, sareko hardwareren eta softwareren mantentze lanak burutzen dituzte. ETC-entziklopedia

6 ***sistema administratzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Sistema-administratzaileak edo DBAk esplizituki eman behar die eskemak, taulak eta bestelako elementuak sortzeko pribilegioa dagokien erabiltzaile-kontuei. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aitzol Naberan CodeSyntax enpresako **sistema administratzaileak** esan duenez, albiste hori normala da, eta sakelako telefonoen gorakadarekin alderatu du. ETC-prentsa

Egungo ikasketez gain, Ruzok Fabrikazio Mekaniko gradua ere badu, Espada sareko **sistema administratzailea** da eta Rodriguezek egina dauka Multiplataforma Aplikazioen Garapeneko goi zikloa. ETC-prentsa

7 ***sistemen administratzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Sistemen administratzailea (ingelesez, "sysadmin" laburdura erabili ohi da) sistema informatiko bat egoki funtzionatzeko ardura duen pertsona da. ETC-entziklopedia

Anjel Abad Ludeiko **sistemen administratzaileak** nabarmendu du Interneten segurtasuna zaintzeko nahikoa dela "zentzuz" jokatzea. ETC-prentsa

Horrexegatik zerbitzariek eskaintzen dituzten zerbitzuen administrazioa da liburu honen funtsa, **sistemen administratzaileei** eta administrazioaz ikasi/irakatsi nahi dutenei tresna erabilgarria gertatuko zaielakoan. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

administratzaile eta (8); **administratzaile izan** (3); **administratzaile judiziala** (4); **administratzaile judizialak** (3); **administratzaile on** (3); **administratzaile on bat** (3); **administratzaile paul** (5); **administratzaile paul bremerrek** (3); **administratzaileak eta** (3); **administratzaileak eta** (3); **eta administratzaile** (6); **eta administratzailea** (3); **etxearen administratzailea** (3); **jaun administratzaileak** (4); **jaun administratzaileak** (4); **sortzen slko administratzaileek** (3); **zuen administratzaileak** (3); **zuen administratzaileak** (3)

---

administratzale ik **administratzaile**.

---

administrazio *(ETCn **84.798** agerraldi; orobat **administrazione** g.er. eta **adminiztrazione** g.er.)* **1** *iz* pertsona edo erakunde baten ondasunak kudeatzea; egiteko baten antolaketa-arazoen, diru gorabeheren eta kidekoen arta izatea; lurralde baten gobernua gauzatzea; (gehienetan letra larriz) gobernu erakundeen multzoa.

Bi zaindari arruntek, **administrazioaren** hotza begietan eta giltzak azantz, 853 ziegara gidatu zuten. Itxaro Borda

Barbaroen erresuma berrien jabeak, Erromako funtzionario ohiak **administraziorako** erabiliz batetik, eta Inperioaren helburu unibertsalak bereganatuak zituen Eliza erromatarraren laguntzarekin bestetik, baldintza berriak ezartzen joan ziren, nondik, apurka, kultura berri bat sortzekoa zen. Askoren artean

Garai hartan, **administrazioko** kargu batean nengoela, ez nekien ongi zeri buruz hitz egin, hasieratik baiezkoa emana baldin banien ere. Pello Salaburu

Biok izan ditugu, gainera, goi karguak unibertsitateko **administrazioan**, batek errektore bezala, eta errektoreorde gisa besteak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Administrazio baten sabel itsuan bizi gara. Josu Zabaleta

Neurri batean, bertsolaritzaren kultur proiektuak badu autonomia maila bat **administrazioen** kultur-politikekiko; izan ere, oinarri duen sorkuntza-jardunak, bertsogintzak, autoerregulazio ekonomiko handia baitu bere izaera apalagatik, eta ez du **administrazioaren** laguntzekiko menpekotasunik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

1979an autonomia estatutu zabala lortu zuen, barneko **administraziorako** erabateko askatasuna ematen ziona. Bernardo Atxaga

Honek nire iloba Ahikar jarri zuen erreinuko finantzen arduradun, **administrazio** osoaren agintea berari emanaz. Jose Antonio Mujika

Idazten dituztan gauza bakarrak dira **administrazioari** egiten diren letrak. Menane Oxandabaratz

Ez dago zuhur jakiterik, edo zuhur jakin liteke **administraziora** joz gero. Karlos Linazasoro

Cervantesena ikaragarri maite dugun arren, argi dago, Patri, epaileen eta **administrazioaren** agiriak geurean jasotzeko bide bakarra, disko gogorretik espainola borratzea izango dugula aurrerantzean. Hasier Etxeberria

Estrategia horretan, berriro ere ahalik eta elementu gehien inplikatzea lortu nahi da, hala nola produkzio agenteak, herritarrak eta **administrazioa**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Prefetek txostenak igortzen baitzizkioten ministroari beren apezpikuaz, 1879-koan, idazten du apezpikua gaizki mintzatu zela prentsaren bidez bai prefetaz bai **administrazioaz**. Xipri Arbelbide

Euskara eta euskaldunak gutxiesten zituen frantses **administrazio** horrek besterik merezi zuena? Itxaro Borda

-Kalteena kobratzeko, aurkeztu zerrenda **administrazioan** -esan zioten gero barrez. Koldo Biguri

Garraiolariek gasolioaren zergak arintzea eskatu diete **administrazioei**... Urtzi Urrutikoeetxea

- Zuk esandakoa egin eta **administrazioak** erantzungo du -esan zuen tonu hotzez. Jon Alonso

Aitatxik maiz lanpetzen zituen Donapaleuko notarioak, gazteluzaintzaren **administrazioari** loturiko izkribuekin. Aingeru Epaltza

Administrazioa euskalduntzeko planak ez ditu helburuak bete. Berria - Euskal Herria

Euskal Autonomia Erkidegoko **Administrazioa** euskalduntzeko plangintzek orain arte emaitza eskasak izan dituztela uste du Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak. Berria - Euskal Herria

Ezer ez da beren begirune zorrotzetik libro: kontsumoa, multinazionalen indarra, AEBetako **administrazioa**, mito sexualak, produktu transgenikoak e.a. Ironiaz eta irudimenaz baliatzen dira beren kritikak egiteko; marketingaren legeak erabiliz eta hizkera irauliz. Txema Ramirez de la Piscina

Institutu berria zenez, landareak zituen **administrazioa** eta irakasleen mintegiak zeuden aldean, eta harea-kolorez moketaturiko liburutegi bat. Joseba Urteaga

Geroago, alargun geratu eta Anna Barbórekin ezkondu zen, eta seme bat izan zuen, Julio, eta, denbora berean, **Administrazioko** goi-funtzionario egin zen. Juan Martin Elexpuru

Postu altua eman zidan **administrazioan** -hori ere esaten nion- eta handik aurrera hamar errublo bidaliko nizkiola hilero. Matías Múgica

Hala ere, gure herri honen mapa egiten diet, egungo **administrazioen** barne-mugekin eta denarekin. Edorta Jimenez

Herrialdearen **administrazioaz** arduraturik, Simon, hiriz hiri zebilen batean, Jerikora jaitsi zen, Matatias eta Judas bere semeekin. Ehun eta hirurogeita hamazazpigarren urteko hamaikagarren hila zen, Xebat hila. Elizen arteko biblia

Zaindarien kuartela eta **administrazioa** kanpoan daude. Jokin Urain

Jangaitza da jarrera hori baita gizartearen kultur eskabideak zaintzeko ardura duten **administrazioarentzat** edo kultur mundutik hurbil dauden erakundeentzat ere. Anjel Lertxundi

Aitzitik, ez diete inolako burukominik eragiten **administrazioren** mahaitik eroritako ogi-apurrak ere hartzeko eskubiderik ez duten hizkuntzek. Anjel Lertxundi

Nunuk, **administrazioko** bulego batean bezala, hamarkadaz hamarkada eta pixkanaka gora egin zuen familiako ardura gorenak zirenerantz. Ander Irizar

Arreba nagusiarekin ateratzen zen mutila zen, salamancarra, eta Avarozon egiten zuen lan, **administrazioan**. Jon Maia

Baztertuak ginen neurrian, lan mota askotan ez geneukan aukerarik, ez unibertsitatean, ez **administrazioan**, eta ez edozein postu garrantzitsutan. Juan Kruz Igerabide

Aita erregearen **administrazioko** idazkaria zuen. Jon Muñoz

Baina SSko kideak ez ziren gehiegi ere: **administrazioaren** zati handi bat presoen eskuetan uzten zuten, denbora gehien zeramatenengan, preso sozialenetan batez ere. Urtzi Urrutikoetxea

Euskara bizirik dago irratian eta telebistan, bizirik dago prentsan, bizirik dago hezkuntzaren maila guztietan, bizirik **administrazioan**. Pello Salaburu

Administrazioaren zama tokian tokiko agintari horiei uzten zitzaien. Iñaki Mendiguren

2 (izenondoekin)

Eta klasiko, halako moldez eta halako maneran, non ordurako gutxienekoa baitzen zer kargu betetzen zuen, eta non: esaterako **administrazio** autonomikoko goi mailako ordezkari [...] Jon Alonso

1995-1999 urte bitartean bakarrik, espainiar Estatuak bere enplegatuen %60 galdu zituen; **administrazio** autonomoek, berriz, %68 gehiago zituen. Joseba Zulaika

Neskak larru gorritan uretan mustada batzuk egiteko aukera izango du, irla benetan txiroetan ibiliko da, horietan **administrazio** kolonialak dituen paradoxak biziko ditu [...] Edorta Jimenez

Administrazio zentzugabe baten bromarik garestiena. Aingeru Epaltza

Egituratze politikoa esatean, nazio-hizkuntza eta erlijio bakarra indarrez ezartzea, biztanle-taldeak **administrazio** zentral indartsu zapaltzaile baten mende ordenatzea ulertu behar da; Michel Foucault-en lanean ageri da aldaketa hori oso modu erakargarrian azaldua. Koro Navarro

Haren anaia, apez eskolan ibiltzen zena, denbora guzian katzakan ari zen **administrazio** alemanarekin, Joanes librarazi beharrez. Eneko Bidegain

Ezagun zaharrek hiriko **administrazio** politikoan ardura jar dezadan premiatzen naute. Ramon Etxezarreta

Administrazio paregabea edukiko du! Koldo Biguri

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Planak emaitza onik lortu ez zuenez euskaldundu beharreko atal bat bera ere ez zen euskaldundu, **administrazio** atalak euskalduntzeko bideari eutsiko diola esan zuten Jaurlaritzako ordezkariek. Berria - Euskal Herria

Joan den apirilaren 29an, **administrazio** sektoreko mahaia batu zen Gasteizen. Berria - Euskal Herria

Lehenbizi, merkatu nagusiaren **administrazio** sistema goitik behera nola aldatu zirriborratu zuen; gero, kontsumoko zergak salerosketen gaineko tasa nola bihurtu. Karlos Zabala

Min hori, unibertso baten suntsimendu eta arbolaren karraska hori, identitate arazo sentimentala besterik ez eta errealki **administrazio** arazo soila baino ez zaion jaun errealistak, zinez errealista izaki, ezin du itxaron zuk bera herrikideagotzat hartzea hegazkineko eserleku laguna edo kasernako guardia zibila baino. Joxe Azurmendi

Dei Delitti e delle Pene-ren gaztelerazko itzulpena, Juan Antonio de las Casas-ek egina, 1774an argitaratu zen, baina ez **administrazio**-eragozpenik gabe, nahiz eta hauek Gaztelako Kontseiluaren aurrean Campoamor fiskalak egindako diligentziei esker gainditu ziren. Juan Martin Elexpuru

Sistemak ez luke funtzionatuko sail bakoitzeko laguntzaileek beren **administrazio**-sareak besteetatik aparte antolatuko balituzte. Irene Aldasoro

Izaeraz txukun eta txukunzale izanik, poliki-poliki taxua ematen hasi zitzaion **Administrazio** lan hari, eta handik hamabi hilabetera paperak oro pilatuta zituen, gaika eta urteka. Felipe Juaristi

Nork bere buruari zerbitzatzea **administrazio**-ekonomia da. Xabier Olarra

Bere neurri geogra? koa gainditzen duen aztarna duten hainbat herrialde aurkitzen ditugu, hau da, begi-bistakoa da baliabide-kontsumoa ez datorrela ohiko lurralde eta **administrazio** mugekin bat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bi horiek bultzatuko zuten hartara, makurrarazi eta azkenean **administrazio**-bulegoetaraino bertaraino lagunduko zioten. Oskar Arana

Eta Askatasun lehiari eratxikitzen baldin bazaio Zuzentasunaren eta Elkartasunaren ardura, Nazio Batuen Erakundea ez da gehiago izanen Estatu arteko **administrazio** antolamendu hotz soil bat, baina bai Munduko Nazioen familiarentzat beti zabalik dagoen Etxondo gozoa. Piarres Xarriton

Gustatuko zitzaiokeen, erlijiosoa ez izan arren, erromantizismoz, Karitateko lekaimeak aingerutarrak zirela sinestea; baina, egia esateko, **administrazio**-gaiez eta gaixo bat larri jartzen zenean konfesoreari deitzeaz baizik ziren arduratzen ospitalean, Hurtadok ikusten zuenez. Josu Zabaleta

Latinezko dispensatio hitza, etxezainaren **administrazio** edo ondasun-kudeaketa esan nahi duena, hemen "salbuespen" esanahiaz erabiltzen da. Askoren artean

Kronologiaren arabera txukun ordenaturiko **administrazio** paper arrunten artera lerratuak ziren oso aspaldiko paper arrotz batzuk. Joxan Elosegi

Eta deitzen badute ere ez, ezen eta bi gauza gerta baitaitezke: frontera destinatzea edo **administrazio** lanetara destinatzea. Harkaitz Cano

Dena den, Mikelentzat biziki baliagarriak ziren: "bisak" emanez, enbaxadetako edo non-nahiko aireportuetako **administrazio** langileek herri bakoitzean sartze eta ateratze egunak idazten zituzten. Ramuntxo Etxeberri

Lau aldiz joan zen argitaletxera hara joateko arrazoirik eduki gabe, bere lana, dakigunez, bakarka eta etxean egitekoa baita, langile arruntak lotzen dituen menpekotasun gehienetatik aske, **administrazio**-eginkizunetan, zuzendaritza literarioko lanetan, produkzio, zabalkunde eta gordetegikoetan dabiltzan langileak zaindaritzapeko munduan bizi dira, haientzat zuzentzailearen lana askatasunaren erresumakoa da. Jon Alonso

Gero eta zabalagoa den zuloan beti aurrerago joateko premia honen adibide klasikoa Erromatar Inperioaren **administrazio**-historiak ematen du ezarri eta ondorengo bi mendeetan. Iñaki Mendiguren

eta horregatik zutela gudalburu eta santutegiaren arduradun izendatua. Simonek izendatuko zituen santutegiko langile-buruak, herrialdeko **administrazio**-arduradunak, bai eta gudarostearen eta gotorlekuen arduradunak ere. Elizen arteko biblia

Jardute diskurtsibo hau txertatuta zegoen medikuntzan, baina baita **administrazio**-arauetan ere, literatur edo filosofia testuetan, kasuistikan, behartsuei zuzendutako derrigorrezko lan edo laguntza teorietan edo egitasmoetan. Xabier Arregi

Administrazio ikastaro bat ari zen egiten, eta esan zion Lucyri lagunduko ziola. Joxemari Iturralde

Printzea dirua aldatzeko baizik baliatzen ez bada haietaz, bidaltzen dien diruagatik ematen dien irabazi txikiena handi bihurtzen da, negozio handiak besterik egiten ez dituenez, eta etekin handiak eskatzen badizkiote, seguru egon daiteke **administrazio**-akats bat dela tartean. Iñaki Iñurrieta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beste bat, itsas **administrazioko** komisario erretiratua da. Monika Etxebarria

Udal **administrazioa**, ordea, salerosketetan egon beharra duela uste du, berak kobratzen baitu tratu horiei dagokien tasa. Karlos Zabala

Ingalaterran, aduanak errege-**administrazioak** kudeatuta baitaude, negoziatzeko oso erraztasun bitxia dago: hitz bat idaztea aski da traturik handienak egiteko. Iñaki Iñurrieta

5 ***administrazio banaketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **32** agerraldi)*

Antoine Meillet-ek dioenez, erromatarren **administrazio banaketei** eliza katolikoak, oro har, eutsi badie, egiazko beharrei erantzuten zietelako erakusgarri garbia da. ETC-literatura, saiakera

Ezinezkoa al da, azken helburuei uko egin gabe, oraingoz dagoen **administrazio-banaketa** kontuan hartzea aurrera egin ahal izateko? ETC-literatura, saiakera

Hala, beraz, **administrazio-banaketak**, lehendik hor zeudenak nahiz berriak, ez dira oztopo izango eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza hori sustatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eztabaidaren muinean **administrazio banaketa** dago. ETC-prentsa

Polita izanen zen, baina **administrazio banaketa** honekin nahiko zaila izanen da. ETC-prentsa

Administrazio banaketa inbertsioak egiteko zein zerbitzuak antolatzeko orduan oztopoa dela gaineratu du. ETC-prentsa

Euskal Herria aintzat hartzen ez dutenak eroso daude **administrazio banaketarekin** eta txalotzen dute. ETC-prentsa

2003ko udan okupatzaileek aukeratutako Gobernu Kontseiluak jatorri etniko edo sinesmen erlijiosoaren araberako **administrazio banaketa** egin zuen. ETC-prentsa

Gaur egun helduen euskarazko euskalduntze eta alfabetatzean aritzen den elkarterik zaharrenetakoa dugu eta, **administrazio-banaketak** gaindituz, Euskal Herri osoan lan egiten duen bakarra. ETC-entziklopedia

6 *administrazio barruti*

Axularrek bezala, euskaldunak **administrazio barruti** bakarrean ez egotea eta batzuek besteekin hartu-eman txikia izatea jo zituen arrazoitzat. Koldo Zuazo

Gure herria ere **administrazio barruti** askotan zatituta dagoenez, bene-benetakoa da hizkuntza apurtzeko arriskua, eta zenbait urrats egin ere egin dira norabide horretan. Koldo Zuazo

7 *administrazio-batzar*

32 Zemstvo: tsarren garaian, probintziako **administrazio-batzarra**, aitoren semeek osatua. Jose Morales

8 *administrazio ebazpen* *(corpusean ez dago; ETCn **181** agerraldi)*

Eskubide urraketak egiaztatzeko, "**administrazio ebazpenak** edo ebazpen judizialak" baliatzeko aukera izango da. ETC-prentsa

Urraketa egiaztatu ahal izango da legez kontrako egitate horien errealitatea aitortzen duten **administrazio-ebazpenaren** edo ebazpen judizialaren bitartez.... ETC-prentsa

Legez kontrako errepresio egoeran eskubideak urratu zaizkiela frogatzeko, **administrazio ebazpena** edo ebazpen judiziala aurkeztu beharko dute kaltetuek, edo, bestela, "zuzenbidean onartzen den beste edozein froga". ETC-prentsa

Preskripzio-epea zehapena eragin duen **administrazio-ebazpenak** irmotasuna hartzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita kalkulatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zehazpenen preskripzio-epea, betiere, zehapena eragin duen **administrazio-ebazpenak** irmotasuna hartzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita kalkulatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zehapen prozeduran ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea urtebetekoa izanen da, espedientea abiarazteko **administrazio ebazpena** ematen den egunetik hasita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi urteko epean eta, hala denean, inskripzioa egin aurretik, 37. artikuluko 3. paragrafoak aipatu duen Erregistroan, autonomia-erkidegoek kasuan kasuko **administrazio-ebazpenak** emango dituzte, ETC-zientzia, zuzenbidea

Epai edo **administrazio ebazpen** irmo baten bidez desgaituak edo eginkizun-gabetuak dauden funtzionarioek ezin izanen dute parte hartu lehiaketetan, epaian edo zehatzeko ebazpenean adierazitako epea igaro ez bada. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontratazio organoak ahalmen hori erabiltzen duenean, **administrazio ebazpena** arrazoitua izanen da eta interesdunei jakinaraziko zaie administrazio prozedura arautzen duen legerian xedatutako moduan?. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erregistro publikoetan dokumentuak lerrokatzea ere arautzen da eta agintzen da arau-xedapen zein **administrazio-ebazpen** eta -ekintza orok bi hizkuntzetan idatzita egon beharko duela argitaratzeko, jakinarazpen eta adierazpenak bezala. ETC-entziklopedia

9 *administrazio egintza* *(corpusean ez dago; ETCn **409** agerraldi)*

Arauzko esparru berriaren ondorioz, natur guneek ez dute babes gunerik izan behar, eta, hain zuzen ere, horrek ekarri zuen **administrazio-egintza** baliogabetzea. ETC-prentsa

Legeen edo **administrazio egintzen** gainean herri botoetara jotzeko prozedura juridikoa, herriak haiek berrestea proposatzen denean egiten dena. ETC-prentsa

Administrazio-egintzak betebeharrekoak direla gogoratu dio Nafarroako Administrazio Auzitegiak. ETC-prentsa

Bigarrenik, **administrazio egintzei** buruz, arauzko xedapenentzat ezarritako erregimen berdina finkatzen da, zenbait berezitasunez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazio-isiltasunez baiestea prozedura amaitzen duen **administrazio-egintzatzat** joko da, ondorio guztietarako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arau horiek beroriek aplikatuko dira administrazioemakidekin berdinesten direlako zergapean dauden **administrazio egintza** eta negozioetan ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Titulu gaitzaileak esleitzea izaera arautuko **administrazio-egintza** izango da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administratzaileak kontu-hartzai leari komunikatuko dizkio berak betearazi nahi dituen **administrazio-egintzak**; eta,kontu-hartzailearen ustez ez badira komenigarriak, ohar egokiak egingo dizkio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Enpresa-batzordeari gaitasuna aitortzen zaio, kide anitzeko organoa den ginoan, **administrazio-egintzak** edo akzio judizialak egikaritzeko, bere eskumenen esparruko gai guztietan, kideek gehiengoz hartutako erabakiaren bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *administrazio espediente* *(corpusean ez dago; ETCn **145** agerraldi)*

Era berean, zazpi langile pakistandarrak "egoera irregularrean" zeudenez, **administrazio espedienteak** ireki zaizkie. ETC-prentsa

Baimendutako zarata baino gehiago ateratzen duen motorraren jabeari dagokion **administrazio espedientea** zabaldu eta isuna jarriko zaiola esan du Udalak. ETC-prentsa

Proposamenaren legezkotasuna bermatuko lukeen aldez aurretiko **administrazio espedientea**, derrigorrezko txosten teknikoekin, tramitatzea nahitaezkoa dela ahaztu zuten. ETC-prentsa

Egun, herritarrak **administrazio espediente** baten edukia ikusteko eskubidea du. ETC-prentsa

Ertzaintzak **administrazio espedientea** ireki zion. ETC-prentsa

Administrazio-espedientearen lekukotza jaso ondoren, auzi-jartzailea hogei eguneko epean epatuko da, demanda aurkez dezan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egitateok behar bezala egiaztatu badira, akta horren kopia osoa eta eskuetsia titulu nahikoa izango da, bai Jabetza Erregistroan aurreneurrizko idatzoharra egiteko, bai eta, horren ostean, **administrazio-espedientea** hasteko ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edonola ere, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak **administrazio-espedientea** egin beharko du beti, eta dagokion kudeaketa-organoari entzunaldia eskaini beharko dio nahitaez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pleguaren gutxieneko edukia erregelamendu bidez zehaztuko da, eta **administrazio espedientea** izapidetuko da, toki araubideari buruzko legeria indardunari jarraituz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazio espedientean eta ebazpenean ondasun higiezin bakoitzaren identifikazioko erreferentzia jasoko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kasu horretan, Administrazioak ezin izango du bere defentsan **administrazio-espedientean** -izango balitz- agertzen diren egitateak besterik erabili. ETC-zientzia, zuzenbidea

Interesdunei terrorismoaren biktima direla onartzeko administrazio ebazpenak baliagarriak izanen dira, betiere, kasuko **administrazio espedienteak** izapidetzeko eta ebazteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 *administrazio-isiltasun* *(corpusean ez dago; ETCn **77** agerraldi)*

Epealdi hau iragan ondoren, interesdunak, bere merkataldegi handiaren lizentzia-eskaria **administrazio-isiltasunez** ezeztaturik ulertu beharko du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazio-isiltasunaren ondorioz errekurtsoari ustezko gaitziritzia eman bazaio, gobernu-errekurtsoa jarri zenetik urtebete eta egun baliodun bat igarotakoan muga-eguneratuko da aurkezte-idazkunaren luzapena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazio-isiltasunaren ondorioz errekurtsoari ustezko gaitziritzia eman bazaio, gobernuerrekurtsoa jarri zenetik urtebete eta egun baliodun bat igarotakoan muga-eguneratuko da aurkezteidazkunaren luzapena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazio-isiltasunaren bitartez ezingo da inoiz ere hirigintza-ahalmenik eskuratu, baldin eta lege honetan, aplikatzekoa den hirigintzari buruzko legerian edo

aplikatzekoa den hirigintza-antolamenduan xedatutakoaren kontra bada. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, **administrazio-isiltasunaren** auzia ezezko esanguran konpondu da, kontrako konponbideak ondorio kaltegarriak izango lituzkeelako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldaketak, bereziki, **administrazio-isiltasunari** eta administrazioerrekurtso sistemari buruzkoak izan dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazio-isiltasunak egindako eskaerak atzera bota direla esan nahi du, berariazko ebazpenik ezean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrek, baina, eskaerari "**administrazio-isiltasunarekin**" erantzun zion, Fiskaltzak haien erantzukizuna frogatu duen arte. ETC-prentsa

"**Administrazio isiltasuna**" izan daiteke? Ez dakit! ETC-prentsa

Eusko Jaurlaritzak ez zuen erantzun eta Nafarroako Gobernuak idatzi zien zoologiko bat onartua dagoela (Senda Viva), baina **administrazio-isiltasuna** deitzen den prozeduragatik. ETC-prentsa

12 *administrazio kontratu* *(corpusean ez dago; ETCn **157** agerraldi)*

Behin ebazpenak jakinarazita, behin-betiko bermearen ekarpena, multiplearen gestorea, instalazioaren proiektu teknikoa eta **administrazio kontratuaren** sinadura lotu behar dira. ETC-prentsa

Langile horiei **administrazio kontratuak** egin zizkieten, ezohiko lanetarako zirelakoan. ETC-prentsa

Batzar Nagusien arabera, administrazioen "eskubidea eta egiteakoa" da **administrazio kontratuetan** hizkuntza irizpideak ezartzea. ETC-prentsa

Emakida **administrazio kontratua** da, non zerbitzua, nahiz eta administrazioaren titularitatekoa izan, enpresa edo pertsona pribatu batek kudeatzen duen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Honela, musika-ikastetxe ofizialen eta bertan lan egiten duten irakasleen artean, hiru motako harreman juridikoak bereiz daitezke: funtzio publikoari dagokiona, **administrazio-kontratu** baten menpe dagoena eta lan-kontratu bidezkoa, hain zuzen ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zordunak herri administrazioekin egindako **administrazio-kontratuen** gain konkurtsoadierazpenak izango dituen ondoreei dagokienez, horien legeria berezian ezarritakoa izan behar da kontuan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eskaini ezean, urtebeteko epea betetzen den egun berean **administrazio kontratua** iraungiko da zuzenean, eta toki entitateak behar den likidazioa egin beharko dio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretarako erabiltzen den kontratua "zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua" da, **administrazio-kontratuen** tipologian toki propioa duen kontratu mota hain zuzen ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horien isla da 1990. urtean UPV/EHUko zenbait irakaslek **administrazio-kontratua** sinatzeari uko egitea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aipatu hautaprobetan ez dira baloratuko, inola ere, kasuko deialdiaren ondorio den **administrazio-kontratuaren** kariaz emandako zerbitzuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 *administrazio kontseilu*

Hilerriko ateko iragarki-oholak argituta jakin nuen "haien" hila - hiriko legegizon guztiz ezaguna, **administrazio kontseilu** aunitzetako aholkularia - eta "nirea" ez zirela bat. Aingeru Epaltza

EITBko **Administrazio Kontseiluko** kidea da EHUk proposatua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gure sukaldari ospetsuen jatetxeetan afaltzeko eskubidea irabaziz batera politikoentzat euren **administrazio kontseiluetan** leku bat gordetzen ikasi zuten, eta uste adina irabazi ez dutelako keja lotsagabeari 'balantzea' deitzen diote. Pako Aristi

Indioek (**Administrazio-Kontseiluarentzako** nire txostenean aipatzen den bezala) Herberten agindu guztiak bete zituzten, hark artean espainieraz tutik ez zekien arren, eta onartu ere bai berehalaxe beren nagusi berritzat... Joxe Austin Arrieta

Endesako **administrazio kontseilua** isilik geratu zen, baina Espainiako Auzitegi Gorenaren aurrean helegitea aurkeztuko dutela zehaztu zioten Eferi enpresako iturriek. Berria - Ekonomia

Gero, antzera hitz egin zuen, entzuleen artean baitzegoen, Joanmari Larrarte EKTko **Administrazio Kontseiluko** idazkariak. Berria - Euskal Herria

Bi sexuek ikasi dute toki berean esertzen eskolan, elkarte gastronomikoetan, ministroen eta **administrazio kontseiluetan** eta ia nonahi, baina komuneko zuloraino ez da iristen sexuen berdintze hori. Iñaki Segurola

Esaterako, administrazio autonomikoko goi mailako ordezkari, edo honen eta gobernu zentralari eusten zion partiduaren arteko bitartekari, edo halako banku, enpresa edo egunkariko **administrazio kontseiluko** kide, edo - zergatik ez, Gizon Handia bezalako batek horrenbeste ahal zuen. Jon Alonso

Odon Elorza Donostiako alkatea, Juan Celaya Zeroa Multimediako **Administrazio Kontseiluko** lehendakaria... Iñigo Aranbarri

Baina aitzakia hemendik, aitzakia handik, arriskutsua izan zitekeen, maskorrak kalteak jasan zitzakeen, **administrazio-kontseiluaren** iritzia entzun behar zela, inork erabaki nahi ez, eta harrobiak berak erabaki zuen, bere jeinu gaiztoarekin. Juan Garzia

14 *administrazio kudeatzaile* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Nafarroan, eta gainerako administrazioetan, **administrazio kudeatzaileak** konturatu dira euskaldungoak baduela pisu bat, eta beren postua atxikitzeko kontuan hartu behar dutela... ETC-prentsa

Hor ere Mixel Fagoaga senpertar kontugilea, Juan Jo Zearra, Euskaltzaindiko **administrazio kudeatzailea** eta Annie Etcheverry, Iparraldeko idazkaria. ETC-prentsa

Xede horretarako, **administrazio kudeatzailearen** organo aginpidedunak egindako zorpekoen egiaztagiria betearazlea izango da (testu artikulatuaren 84. artikuluko 2. paragrafoa). ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazio kudeatzailearen bilketa-organoei ordaindu behar zaizkie isunak, zuzenean edo banketxeen bidez, irmo egiten direnetik hamabost egun baliodunetako epearen barruan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina Ehrenborgek ere bere filmak sortu nahi zituen, enpresa- edo **administrazio-kudeatzaile** hutsa izan gabe. ETC-zientzia, zuzenbidea

15 *administrazio lokal* *(corpusean ez dago; ETCn **71** agerraldi)*

Laborategirik eta **administrazio-lokalik** edukitzeko aukerarik ere ez. ETC-literatura, saiakera

Euskaraz emititzen duten telebista lokal gehienak **administrazio lokalak** sustatu ditu edo **administrazio lokalaren** babes ekonomiko garrantzitsuari esker mantentzen dira. ETC-literatura, saiakera

Nafarroan **administrazio lokala** berritzeko erabakia hartu dute. ETC-prentsa

Hala eta guztiz ere, komunikabide nagusi gehienek zein hainbat **administrazio lokalek** (festetako programaren sarrera testua kasu) herriaren 800. urteurrenaz eta honen ospakizunaz mintzatzen jarraitzen dute. ETC-prentsa

Imtiaz Mohyudin bozeramaileak **administrazio lokalak** kritikatu ditu, baita estatuak hondamendiari aurre egiteko zuen prestakuntzarik eza ere. ETC-prentsa

Sektore publikoan, Eusko Jaurlaritzarekin eta **administrazio lokalekin** negoziatuko dute. ETC-prentsa

Administrazio Lokalean, udal bakoitzean zehaztu behar da zenbat lanpostu izango diren, baina aurrerapen bezala, 3.500 inguru izango direla uste dugu. ETC-prentsa

Politika berriak behar dira, baina ez Europatik, euskal gobernutik edo diputazioetatik bakarrik: **administrazio lokalek** asko dute egiteko. ETC-prentsa

Prest gaude negoziatzeko Siriako mugen barneko **administrazio lokalerako** erakunde bati buruz. ETC-prentsa

Rajoyren gobernuak onartutako **administrazio lokalen** erreforma babestu zuen EAJk, eta hori dela-eta bermatu ahal izan dira gure udal sistemaren foru berezitasunak. ETC-prentsa

PPk dio erreforma honen atzean **administrazio lokalen** arrazionalizazioa eta iraunkortasuna dagoela, eta guk ere itxura bera hartzen diogu akordioari. ETC-prentsa

Hainbat eragile batu gara: sindikatuak, landa garapenerako agentziak, **administrazio lokalak**, baserritarrak, eskola jangeletako langileak eta, bereziki, familiak. ETC-prentsa

Kanpoan utziko ditut, beraz, Nafarroako **Administrazio lokala** eta periferikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Orobat, lurraren erabilera orokorrak esleitzea, lursailen aprobetxamendu urbanistikoa zein eraikigarritasuna finkatzea eta abar **administrazio lokalari** dagozkio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazio lokal, foral zein autonomikoetan, justizian eta osasun-zerbitzuetan, itzultzaile-lanpostuak sortuz joan ziren, baita itzulpen-enpresa pribatuen beharra agertuz ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

16 *administrazio organo* *(corpusean ez dago; ETCn **496** agerraldi)*

Hala, epailearen agindurik gabe, paperik gabeko etorkinak atxilotu ahalko dituzte **administrazio organoek**. ETC-prentsa

Eskaera zehatza egin diete Guggenheimen **administrazio organoetan** lanean ari diren udal ordezkariei: museoaren kudeaketa ahalik eta gardenena izan dadin beharrezkoak diren neurriak har ditzatela. ETC-prentsa

Hala, gobernuak **administrazio organoak** "lehiaren eta merkatuaren arau lauso eta interesatuen menpe" jarri dituela uste du. ETC-prentsa

Aurrezki kutxen legearen arabera, gehienez hamabi urtean egon daiteke norbait kutxa bateko **administrazio organoetan**. ETC-prentsa

Sorturen barruan ordezkapen, gobernu eta **administrazio organoak** ezartzen dira. ETC-prentsa

Kutxen gobernu zein **administrazio organoetan** izango du eragina, besteak beste. ETC-prentsa

Justizia Administrazioa da beti mantsoen aldatzen den **administrazio organoa**. ETC-prentsa

Euskadiko Kutxako eta Ipar Kutxako **administrazio organo** gorenek, kontseilu errektoreek, baiezkoa esan diote bi kreditu kooperatibek bat egiteko proiektuari. ETC-prentsa

Horrela, arau berriak ezarri dira erreforman edo aldaketan elkarte-publizitateari, urteroko kontuen gordailuari, eraldaketa eta bat-egiteei, **administrazio organoen** gaitasun edo konpetentziei eta bazkideen eskubide eta obligazioei buruz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baltzu publiko edo erakunde publiko bakoitzeko gobernu-organo eta **administrazio-organo** eskudunek erabakiko dute zein modu eta alditan ordainduko diren pizgarri horiek. ETC-zientzia, zuzenbidea

b) Sozietate baten forma juridikoa daukaten enpresetan **administrazio-organoetako** kontseilari edo kide karguan jardute hutsera erabat mugatuta dagoen jarduera, Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *administrazio prozedura*

Erreformaren 1. artikuluaren 38. eta 39. atalen arabera, ez dira aintzat hartuko etorkinen **administrazio prozedurak** eta eskaerak, adibidez, etorkinak berak zuzenean aurkeztu ezean. Berria - Euskal Herria

18 *administrazio publiko*

Administrazio publikoek, oro har, ez dute oraindik barneratu Arartekoak daukan rola. Berria - Harian

Auzi horiek, besteak beste, hezkuntza eta **administrazio publikoa** dira. Berria - Mundua

Egia da **administrazio publikora** joanez gero behin baino gehiagotan ez direla euskaldunak aurkitzen egon behar luketen tokietan. Pello Salaburu

Izan ere, hura hartzen duten gizonek, eta hura harrarazten dutenek, ia ez dute beste ideiarik **administrazio publikoaz**, sorleku duten estatukoak baizik. Iñaki Iñurrieta

Espainiako **Administrazio Publikoetarako** egonkortasun helburuak atzo onartu zituen Gobernuak. Berria - Ekonomia

Administrazio Publikoetarako ministro Jordi Sevillarekin bilduko da Gasteizen, eta egun batzuk barru, Espainiako presidente Zapaterorekin bilduko da. Berria - Euskal Herria

Saileko zuzendariari zegokionez, urte asko zeramatzan **administrazio publikoan**, eta kudeatzaile ona omen zen, baina urteetan kudeaketa zuzena izandakoak okerrera egin bide zuen azken urteetan. Migel Angel Mintegi

Esaterako, 1994an Arabako Instituto Foral de Bienestar Social-erako egindako ikerketa batek Arabako **administrazio publikoaren** gastu sozialaren eragina aztertu zuen. Iñaki Heras

Administrazio publikoei ere gaiaren gaineko arreta eskatu die, eta laguntza ikerketak bultzatu ahal izateko. Berria - Gaiak

Niri, Mr Moncrieff, Funtzionarioen **Administrazio Publikoko** Saltegietako Prezio Zerrendaren bi ale eman dizkidazu. Antton Olano

19 *administrazio unitate* *(corpusean ez dago; ETCn **130** agerraldi)*

Hortaz, **administrazio-unitate** diren Estatuen arteko harreman juridikoez arduratzeak soilik dauka zentzua, eta ez nazioen arteko harreman juridikoez, horiek Estatuez desberdin diren entitatetzat baldin badauzkagu. ETC-literatura, saiakera

Eremu administratiboek ezaugarrituko lituzkete, **administrazio unitate** esanguratsuena estatua izanik. ETC-literatura, saiakera

Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzean ere eginkizun horiek betetzeko **administrazio unitateak** egotea agintzen du eta Sail arteko Batzordea eratzea. ETC-prentsa

Udalak dira herritarrek gertuen duten **administrazio-unitatea**, eta, neurri batean, lurralde-antolamenduaren oinarria eta estatuaren lehen unitatea da udalerria. ETC-prentsa

Abuztuaren 8an onarturiko zirriborroari ekarpenak egiteko, hilabeteari gelditzen zaizkion bi asteak dituzte **administrazio unitateek**. ETC-prentsa

Noski, ziegan dagoenak ere badu bozka emateko eskubidea, eta hala jartzen du praktikan, hala nahi duenak -horren ardura duen **administrazio-unitateak** trabarik jarri gabe, espero dut-. ETC-prentsa

Hamabi **administrazio unitate** utziko ditu zerbitzutik at, horrela 308.500 euro aurrezteko. ETC-prentsa

Gaiak ebazteko edo bideratzeko ardura duten **administrazio-unitateetako** arduradunak eta herriadministrazioetako langileak dira, zuzenean, izapideen erantzule. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazio unitateetan bulegoko artxiboak izanen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Honaino iritsita, badirudi arrasto onean gaudela erreinuaren gobernamenduari taxua hartzeko; bai, bederen, haren **administrazio-unitateen** nondik norakoari, multzoen antolaerari, dagokion heinean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oinarrizko kontzeptuak zehaztu ditugu alde batetik; bestetik, aipatu beharra dugu, hiritarrengandik gertuen dagoen **administrazio-unitatea**: udala, hain zuzen ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beijing hiria 18 barruti eta konderrik osatzen dute, eta hauek aldi berean 273 **administrazio unitate** txikiagoetan banatuta daude. ETC-entziklopedia

Lurralde bakoitzak bere banaketa administratibo propioa du, beraz, ez dago **administrazio-unitate** amankomunik. ETC-entziklopedia

Latinezko "vicus" hitza Erromatar Inperioko hiri bateko **administrazio-unitate** txikienari ere aplikatu zitzaion. ETC-entziklopedia

20 *administrazio zatiketa*

Katalana normalizatzea zen batzarkideen helburua, eta **administrazio zatiketa** horixe zen helburura iristeko oztopoa. Koldo Zuazo

21 *administrazio zuzenbide*

Dena dela, **Administrazio Zuzenbidean** katedraduna den Iñaki Agirreazkuenagak Euskararen ofizialtasuna: EAEko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen aplikazio juridikoa lanean azaltzen duenez, agerikoak dira lege horrek dituen hutsuneak. Berria - Harian

22 *administrazioarekiko auzi errekurtso*

Aurkako ahotsik ere bada, ordea; herritar batzuk, kontra, **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** aurkeztu zuten duela bi urte. Berria - Euskal Herria

Akordioa lortuz gero, Jaurlaritzaren ebazpenaren kontra ipini zuten **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** indar barik geratuko litzatekeela uste baitute. Berria - Euskal Herria

23 *administrazioaren isiltasun* *(corpusean ez dago; ETCn **64** agerraldi)*

Administrazioen arloan ere zeresana eman dute bidesariek: Europako Batzordearen baimena **administrazioaren isiltasunaren** ondorioz lortu du diputazioak. ETC-prentsa

Salatu duenez, estatuko legeak "**administrazioaren isiltasun** negatiboa" jasotzen du. ETC-prentsa

Tarte horretan erantzunik jasoko ez balu, baimena lortuko luke Sadek, **administrazioaren isiltasunagatik**. ETC-prentsa

"**Administrazioaren isiltasunak** ekartzen du, halere, baimen hori jasotzat hartzea", azaldu du Ingurumen Departamentuak. ETC-prentsa

Erantzuten ez zigula ikusita, helegitea jarri behar izan genuen, **administrazioaren isiltasunagatik**. ETC-prentsa

Kexen iturburua Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak jabetza hartu baino urtebete lehenago emandako administrazio-egintza bat bada edo, **administrazioaren isiltasuna** izan denean, jabetza hartu baino urtebete lehenago igaro baldin bada epea, kexak horiek ez dira aintzat hartuko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Era berean, bertan adierazita egongo dira bai prozeduren gehienezko epeak, bai **administrazioaren isiltasunak** ekarriko lituzkeen ondorioak ETC-zientzia, zuzenbidea

Askatasunez jarduteko araubide honetan gainera **administrazioaren isiltasun** positiboa ezartzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Epe hori ebazpenik eman gabe amaitutakoan, behin betiko onespena **administrazioaren isiltasunez** eman dela iritziko zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Era berean, prozedurako fase bakoitzean errespetatu beharreko epeen ezaugarriak eta **Administrazioaren isiltasunaren** ondorioak arautuko dira. ETC-zientzia,

zuzenbidea

24 *administrazioko enplegatu*

Izan ere, **Administrazioko enplegatuei** lan astea 38,5 ordutik 40 ordura igo die. Berria - Ekonomia

25 *administrazioko idazki* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Administrazioko idazki, ikasliburu, saio liburu, ikerketa lan, saio liburuak eta liturgia idatziaren laginak besterik ez daude. ETC-prentsa

Ezagutzen dituzu lege-testuak, **administrazioko idazkiak** eta auzitegietako inprimakiak euskaraz emateko erabiltzen diren irizpideak? ETC-zientzia, zuzenbidea

26 *Estatuaren administrazio orokor*

Frantziako Legebiltzarra **Estatuaren administrazio orokorra** eta lurralde administrazioa erreformatzen ari da. Berria - Euskal Herria

27 *goi administrazio*

Mugaz bi aldetako **goi** administrazioek ez dute horrelako proposamenik onartu. Herria

Gure eskoletan hutsuneak badaude, baina hutsunerik handienak **goi administrazioek** ipintzen dituztenak dira. Berria - Euskal Herria

28 *herri administrazio*

Gobernuaren ordezkaritzaren Gasteizko egoitzan bildutako agintari politikoen artean, besteak beste, Angel Acebes Espainiako Barne ministroa eta Julia Garcia Valdecasas **Herri Administrazio** ministroa izan ziren. Berria - Euskal Herria

Hala, 2001ean EAJk 986.879 euro jaso zituen Espainiako **herri-administraziotik** eta 1.117.649 euro Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetatik. Berria - Harian

Teknologia modernoak mekanizazioa edo arauketa ekarri zuen, eskulangileena ez ezik, baita hauen ugazabena (nazionalizazioa, etab.), **herri-administrazioarena** ("burokratizazioa") eta politikariena (alderdi-diziplina). Iñaki Mendiguren

Osterantzean, informazioa prestatzea eta zabaltzea **herri administrazioei** dagokie, bai legez bai duten ahalmenagatik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

29 *justizia administrazio*

Lehenbailehen saldu ezean, **Justizia Administrazioak** enpresaren kitapena agindu eta guztiak kale gorrian geratzeko beldur dira. Berria - Ekonomia

2002-ri doakionez, kexuak dira gehien bat agertzen: **Justizia administrazioan** euskara erabili ezina; eskola publikoetan euskarazko murgiltzea debekatua Estadu Kontseiluaren ganik... Herria

Alabaina hor, azkartu beharrean, baratzen, **justizia administrazioaren** kate amaigabean. Aingeru Epaltza

Veneziako **Justizia administrazioko** Gorte Goreneko legegilea zen Baffo. Anjel Lertxundi

Europako Hizkuntza Gutxituen Itunak, oro har, dio herritarrak hizkuntza gutxitua erabil dezakeela **Justizia Administrazioan** eta epaileak ez duela hartu behar hizkuntza gutxituaren erabilera prozedura oztopatzeko tresna gisa. Berria - Harian

Bestalde, PANeko lehen ministro Ismail Haniak (Hamasekoa) adierazi zuen Sharia (lege islamikoa) izango dela bere gobernuaren **Justizia administrazioaren** eta legediaren oinarria. Berria - Mundua

Gernikan **Justizia Administrazioa** euskalduntzeko txandaka egiten dabiltzan baraualdiaren barruan, LAB eta EHNE sindikatuetako kideek kontzentrazioa egin zuten atzo, epaitegiaren aurrean. Berria - Euskal Herria

30 *justizia administrazioaren letradu* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Justizia Administrazioaren letraduak funtzionario publikoak dira, kidego juridiko nagusi bakar eta izaera nazionaleko bat eratzen dutenak, Justizia Administrazioaren zerbitzuan eta Justizia Ministerioaren mende. ETC-entziklopedia

31 *lurralde administrazio*

Kurduek kezkatuta jarraitzen dute, NBEko testuak ez baitu aipamenik egin, joan den martxoan Irakeko indar politikoen artean adostutako behin-behineko **lurralde administrazio** legeaz. Berria - Mundua

Frantziako Legebiltzarra Estatuaren administrazio orokorra eta **lurralde administrazioa** erreformatzen ari da. Berria - Euskal Herria

32 *toki administrazio*

Azken batean, Tsin She Huang-tiren ideala -estatu unibertsal bat, **toki-administrazioko** unitate artifizialki antolatuen hierarkiaren bidez erditik kontrolatua- gauzatu egin zen berriro ere, Tsin She Huang-tiren heriotzatik ehun urtera. Iñaki Mendiguren

Izan ere, herriko udalak **Toki Administrazioko** Sailak igorritako foru-agindua jaso zuen otsailaren 23an, udaletxean ikurrina paratzea legearen aurka doala aipatuz. Berria - Euskal Herria

Toki administrazioak, berriz, parte-hartze eskasa izan du prozesuan, agiriaren egileek aipatzen dutenez. Berria - Harian

33 *tokiko administrazio*

Funtzionarioen soldatak ez igotzea, interes tasa bonifikatuen amaiera eta **tokiko administrazioak** ez zorpetzeko mezua helaraztea izango dira Leitek iragarritako neurrietako batzuk. Berria - Ekonomia

Irakaskuntzan euskalkien erabilera sustatzeko ardura handiagoa hartu beharko lukete tokian **tokiko administrazioek**? Berria - Euskal Herria

Europan ohiko bihurtu dira hegazkin konpainien eta tokian **tokiko administrazioen** arteko tratuak. Berria - Harian

Tokian **tokiko administrazioek** argi berdea ematen diote jarduerari, diru iturria den heinean eta beren agintea hurbilegi ukitzen ez badu. Berria - Gaiak

Gobernu zentrala, tokian **tokiko administrazio** -talentuaren gero eta eskasia handiago horren aurrean, behartuta aurkitu zen ez bakarrik printze bezeroen ordez gobernadore inperialak jartzera, baita hiri-estatuen administrazioa "administratzaile" izendatuen eskuetan jartzera ere. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

administrazio atal (11); **administrazio atal elebidunak** (4); **administrazio atalak** (6); **administrazio atalak euskalduntzeko** (5); **administrazio atalen** (6); **administrazio atalen euskalduntzea** (4); **administrazio auzitegiak** (13); **administrazio auzitegian** (6); **administrazio bakarra** (4); **administrazio bakoitzak** (5); **administrazio batzordeak** (7); **administrazio eta** (52); **administrazio eta zerbitzuetako** (33); **administrazio gaietarako** (15); **administrazio gaietarako auzitegiak** (4); **administrazio guztiek** (4); **administrazio inperialaren** (5); **administrazio kontseilu** (22); **administrazio kontseilu berria** (5); **administrazio kontseilu berriak** (4); **administrazio kontseilua** (48); **administrazio kontseilua berritua** (4); **administrazio kontseiluak** (102); **administrazio kontseiluak ez** (4); **administrazio kontseiluan** (33); **administrazio kontseiluan eta** (5); **administrazio kontseiluaren** (43); **administrazio kontseiluaren berritzea** (4); **administrazio kontseiluari** (10); **administrazio kontseiluetan** (9); **administrazio kontseiluko** (117); **administrazio kontseiluko idazkari** (11); **administrazio kontseiluko idazkaria** (8); **administrazio kontseiluko idazkariak** (8); **administrazio kontseiluko kide** (15); **administrazio kontseiluko kidea** (4); **administrazio kontseiluko lehendakari** (11); **administrazio kontseiluko lehendakaria** (7); **administrazio lan** (4); **administrazio orokorrean** (5); **administrazio publiko** (6); **administrazio publikoak** (14); **administrazio publikoan** (5); **administrazio publikoaren** (11); **administrazio publikoei** (6); **administrazio publikoek** (15); **administrazio publikoen** (17); **administrazio publikoetako** (33); **administrazio publikoetako ministro** (12); **administrazio publikoetako ministroak** (6); **administrazio publikoetarako** (29); **administrazio publikoetarako ministro** (5); **administrazio publikoetarako ministroak** (17); **administrazio publikoko** (11); **administrazio sektoreko** (5); **administrazio sektoreko mahaia** (5); **administrazio zentralak** (5); **baina administrazio** (5); **baten administrazio** (4); **bere administrazio** (5); **bi administrazio** (4); **da administrazio** (12); **den administrazio** (4); **du administrazio** (16); **du administrazio kontseiluak** (5); **du nafarroako administrazio** (4); **duen administrazio** (9); **duten administrazio** (4); **eaeko administrazio** (8); **edo administrazio** (4); **egunkaria ko administrazio** (13); **egunkaria sako administrazio** (7); **egunkariako administrazio** (4); **egunkariako administrazio kontseiluko** (4); **egunkariko administrazio** (4); **eitbko administrazio** (4); **eko administrazio** (5); **ektko administrazio** (18); **ektko administrazio kontseiluko** (16); **ektren administrazio** (5); **ektren administrazio kontseiluko** (4); **enpresako administrazio** (8); **enpresetako administrazio** (4); **ere administrazio** (5); **espainiako administrazio** (25); **espainiako administrazio publikoetako** (12); **espainiako administrazio publikoetarako** (10); **estatuko administrazio** (4); **eta administrazio** (65); **eta administrazio eta** (12); **eta administrazio kontseiluak** (7); **eta administrazio publikoek** (5); **eta ektko administrazio** (4); **euskal herriko administrazio** (5); **ez administrazio** (5); **herri administrazio** (14); **herriko administrazio** (5); **jordi sevilla administrazio** (11); **kideko administrazio** (4); **ko administrazio** (20); **ko administrazio kontseiluko** (18); **komunikazio taldeko administrazio** (4); **larrarte ektko administrazio** (5); **nafarroako administrazio** (14); **nafarroako administrazio gaietarako** (9); **orain eko administrazio** (4); **oraineko administrazio** (4); **paueko administrazio** (9); **realeko administrazio** (6); **realeko administrazio kontseiluak** (5); **sako administrazio** (9); **sako administrazio kontseiluko** (6); **sevilla administrazio** (11); **sevilla administrazio publikoetarako** (8); **sevilla espainiako administrazio** (14); **taldeko administrazio** (4); **zion administrazio** (4); **zuen administrazio** (9)

administrazioa bera (5); **administrazioa eta** (20); **administrazioa euskalduntzeko** (39); **administrazioa euskalduntzeko ii** (4); **administrazioa euskalduntzeko planak** (4); **administrazioa euskaraz** (4); **administrazioa ez** (6); **administrazioak berak** (10); **administrazioak bere** (9); **administrazioak duen** (4); **administrazioak egin** (5); **administrazioak emandako** (4); **administrazioak ere** (8); **administrazioak eta** (14); **administrazioak ez** (45); **administrazioak ez du** (14); **administrazioak ez duela** (6); **administrazioak ezarritako** (5); **administrazioak ezin** (6); **administrazioan ere** (5); **administrazioan eta** (14); **administrazioan euskara** (7); **administrazioan euskararen** (25); **administrazioan euskararen erabilera** (20); **administrazioan ez** (4); **administrazioan lan** (11); **administrazioan lan egiten** (6); **administrazioarekiko auzi** (5); **administrazioarekiko auzi errekurtsoa** (4); **administrazioarekiko auzietako** (8); **administrazioarekiko auzietarako** (6); **administrazioarekiko harremanetan** (4); **administrazioarekin dituzten** (5); **administrazioarekin harremanak** (4); **administrazioaren aldetik** (9); **administrazioaren arabera** (5); **administrazioaren ardura** (5); **administrazioaren aurka** (4); **administrazioaren aurrean** (4); **administrazioaren esku** (6); **administrazioaren eta** (14); **administrazioaren euskalduntzea** (7); **administrazioaren jarrera** (4); **administrazioaren kontrako** (6); **administrazioaren parte** (5); **administrazioari dagokionez** (4); **baina administrazioak** (8); **bi administrazioak** (4); **bilbo administrazioan** (4); **bilbo administrazioan euskararen** (4); **bushen administrazioa** (11); **bushen administrazioak** (24); **bushen**

administrazioaren (7); **da administrazioa** (7); **da administrazioaren** (7); **diogu administrazioari** (4); **diote administrazioari** (4); **ditu administrazioak** (6); **du administrazioak** (16); **du administrazioaren** (5); **edo administrazioak** (4); **espainiako administrazioak** (7); **espainiako administrazioaren** (6); **espainiako administrazioaren aurka** (4); **espainiako administrazioari** (6); **estatuko administrazioak** (4); **eta administrazioa** (15); **eta administrazioak** (42); **eta administrazioak ez** (6); **eta administrazioan** (12); **eta administrazioaren** (35); **eta administrazioari** (7); **euskal administrazioak** (5); **euskara administrazioan** (4); **foru administrazioan** (5); **foru administrazioan euskararen** (5); **frantses administrazioak** (4); **frantziako administrazioak** (9); **george bushen administrazioak** (5); **gure administrazioan** (4); **herri administrazioa** (5); **herri administrazioaren** (10); **horretan administrazioak** (4); **justizia administrazioa** (12); **justizia administrazioa euskalduntzeko** (6); **justizia administrazioak** (11); **justizia administrazioan** (35); **justizia administrazioan euskararen** (5); **justizia administrazioarekin** (5); **justizia administrazioarekin dituzten** (4); **justizia administrazioaren** (15); **justizia administrazioari** (5); **madrilgo administrazioak** (5); **presidentearen administrazioak** (4); **zuen administrazioak** (4)

administrazioek eta (4); **administrazioek ez** (9); **administrazioek ez dute** (5); **administrazioen artean** (6); **administrazioen arteko** (12); **administrazioetako lan** (5); **administrazioetako langileen** (8); **administrazioetako langileen lan** (4); **administrazioko beste** (5); **administrazioko eta** (8); **administrazioko kide** (4); **administrazioko langile** (8); **administrazioko langileen** (13); **administrazioko mahai** (4); **administrazioko negoziazio** (5); **administrazioz zatituta** (4); **aldeko administrazioko** (6); **bi administrazioek** (8); **bi administrazioen** (6); **dute administrazioek** (6); **eaeko administrazioek** (4); **eta administrazioei** (7); **eta administrazioek** (8); **eta administrazioen** (6); **eta administrazioko** (10); **eta foru administrazioetako** (13); **euskal administrazioek** (8); **euskal administrazioen** (6); **foru administrazioetako** (13); **foru administrazioetako lan** (4); **foru administrazioetako langileen** (4); **justizia administrazioko** (4); **moskuren aldeko administrazioko** (5); **toki administrazioko** (4); **tokian tokiko administrazioek** (7); **tokiko administrazioek** (9)

---

administrazioburu *iz* administrazio baten burua.

Ordu batzuk lehenago, 250 preso askatu zituzten, Washingtonek Iraken duen **administrazioburu** Paul Bremerren aginduz. Berria - Mundua

Lehenago Defentsa idazkariorde Paul Wolfowitzi eta AEBen menpeko **administrazioburu** Paul Bremerri eraso zieten, baina hirurak onik atera ziren. Berria - Mundua

"1980an Katalunian autonomia ezarri zenetik 2003ra arte gobernu eta **administrazioburu** gisa egindako ibilbide politikoa nabarmentzeko eta goraipatzeko" emango diote Jordi Pujol Kataluniako Generalitateko presidente ohiari Berezia saria. Berria - Euskal Herria

Gobernu Kontseiluak onartutako proposamen guztiak sinatu behar ditu AEBen agindupeko **administrazioburuak**, baita datozen hileotan idatziko duten behin-behineko konstituzioa ere. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
administrazioburu paul (4)

---

administrazione ik **administrazio**.

---

administraziope *(corpusean **administraziopean** soilik; ETCn **307** agerraldi)* **1** *iz* adimistrazioaren mendekoa.

Etxe barruko gaietan sartuta, Bushen **administraziopean** lanpostu asko galdu direla esan zuen Edwardsek, eta hamarkada askotan gertatzen ez zen gauza zela hori. Berria - Mundua

Kosovo nazioartearen **administraziopean** dago 1999. urteko ekainaz geroztik, eta gutxienez, 200.000 serbiar bizi dira han. Berria - Mundua

Trebiñu Gaztela eta Leongo **Administraziopean** egoteak herritarren zerbitzuei eta eskubideei begira dituen ondorioen inguruan txostena egitea ere proposatzen du taldeak. Berria - Euskal Herria

2 ***administraziopean*** *adlag*

Abenduak 20: Konpainia **administraziopean** jarri zuten. Berria - Ekonomia

---

adminiztrazione ik **administrazio**.

---

admiratu, admira, admiratzen du *ad* miretsi, miraritu.

Eta, alderantziz, jende pobreek **admiratzen** dituzte jende aberatsak. Menane Oxandabaratz

---

admitantzia *(corpusean ez dago; ETCn **158** agerraldi)* *iz* elektrizitatean, korrontearen fluxuari ematen zaion erraztasuna.

Unitate fisikoetan adierazitako zirkuitu elektriko bat unitate bidezko (p.u.) zirkuitu bihurtzeko, parametroaren balioaren (inpedantzia, **admitantzia**) edo aldagaiaren balioaren (tentsioa, potentzia, intentsitatea) eta dagokion oinarriaren arteko zatiketa baino ez da egin behar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Y paraleloko **admitantzia** da, zeinak paraleloko kapazitate eta erresistentzia guztiak barne hartzen baititu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Potentzia sistemak aztertzerakoan, batzuetan lineen luzera osoan zehar barreiatuta dauden serieko erresistentzia eta induktantzia eta paraleloko ihes-konduktantzia eta kapazitantzia egokiak diren inpedantzia eta **admitantzia** bildu edo sare sinplez ordezka daitezke. ETC-entziklopedia

Kasu erreaktiboan, konduktantzia suszeptantzia eta **admitantziarekin** erlazionatzen da. ETC-entziklopedia

Admitantzia inpedantziaren alderantzizkoa da. ETC-entziklopedia

---

ADN *iz (sigla)* azido desoxirribonukleikoa. ik **DNA**.

Bertan lehorreratu zuten hilotza abenduaren 18an eta **ADN** laginak hartu zizkioten, ez baitzuen inolako identifikaziorik. Berria - Euskal Herria

Antza, **ADNa** da garenaren arkitekto nagusia. Berria - Kultura

Behi eri hari egin **ADN** ikerketek diote Kanadako Albertan sortua zela aberea, etxalde batean. Herria

Loup-Y-Es-Tu etxeko hauts-toxa bat eta **ADNaz** indarturiko Gilda krema multzo bat, zelulak indarberritzeko eta makromolekulak birkonbinatzeko bizkortua, eman zizkidaten gainera. Joxan Elosegi

Onartzea krudela izan arren, egoera dagoenean egonda, litekeena duk Alargun Beltzaren **ADNa** azido nitriko upel batean egotea honezkero, landareentzako ongarri bihurtua. Harkaitz Cano

ADN frogak ere ez ligukeela behar beste lagunduko. Hasier Etxeberria

Orain ere otsoen eta zakurren **ADNa** berdintsua omen da. Gotzon Garate

Ez genekien gauza handirik agente garrantzizko horri buruz, baina bai bi gauza funtsezko: bagenekien KAOSeko agente garrantzizko horrek itsuki maite zuela piku-mermelada, batetik, eta bagenekien bere listuaren **ADNko** nukleotidoen sekuentzia zifratua. Jon Alonso

-bestetik, askoz ere gehiago dakigu orain **ADNaren** egituraz, horretan lastertasun bizian abiatu baita XX. mendea azkeneko urteetan bereziki, eta bizia bera zer den gertuagotik jakin dugu; Pello Salaburu

Alde batetik, Annie Parmentier antzezle ohia, bere alaba Isabellen aitatasuna Marcel Martini egozten ziona, eta, bestetik, Hélène Daudet, haren alargun gaztea, aztarna guztien kontra, bera ere senarrak beti eutsi zion ezezkoari irmo atxikitzen zitzaiona, baita epaileak **ADNaren** azterketaren bidez egia zientifikoki argitzeko gorpua hilobitik ateratzea agindu ondoren ere. Ramon Saizarbitoria

Biktima nortasuna **ADNarekin** transmititzen da, eta halaz, zuenak bezalako gerlak hazten dira, elur luma lurrean itzulikatzearen bortxaz borobil erraldoia bihur litekeen eran. Itxaro Borda

Hezurren adina aterako dute, Kolonen **ADNaren** berri emango digute, eta beste hamaika xehetasun halako jakin ahal izango dugu. Joxerra Garzia

Biloaren **ADN** azterketa egin eta Samiyarena zela agertu zen. Gotzon Garate

Urte batzuen buruan, fenomeno hori zeri zor zitzaion erakusteko moduan egon zen: zenbait bakterio-ondotan, baziren entzima batzuk **ADN** arrotza mozteko ardura zutenak, eta haien bidez eragozten zitzaion bakterioa inbaditu eta han sustraitzea. Juan Garzia

Blusa poliziei eramango genien, **ADN** proba egin ziezaiotela eskatu eta artzaina olio irakinezko ontzi batean sartuko zuten egostera. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

adn eta (5); **adn froga** (3); **adn frogak** (5); **adn lagin** (3); **adn laginak** (3); **adn molekula** (3); **adn sekuentzia** (4); **adn transgenikoa** (3); **adn zati** (5); **adn zatiak** (3); **adnaren egitura** (5); **adnko nukleotidoen sekuentzia** (3); **adnzko mundu batera** (3); **eta adn** (3); **eta adnaren** (6); **zuten adn** (3)

---

adobatu *izond* janariez mintzatuz, iraunarazteko moduan prestatutakoa.

Kode bera zuten, eta hara eta hona zebiltzan, lurraldeetako enbaxadore, beren haragi **adobatuekin** eta baratxuri, piper eta pepinotxo arteko oliba birrinduekin. Jon Maia

---

adobe *iz* lasto eta buztinezko masa, eguzkitan lehortua, adreilu forma duena eta eraikuntzan erabiltzen dena.

La Caledonia **adobezko** etxe luze bat zen; sabaia lastozkoa zuen, bi isurkinekoa, eta adreiluzko korridore bat. Juan Garzia

Adobezko hormak zituen landa etxe batean bizi nintzen. Josu Zabaleta

Ekintzaileak **adobezko** gotorleku batzuetan inguratuta daude, Uana hiritik gertu. Berria - Mundua

Etxeak bazuen atzeko aldean **adobezko** hesi-horma bat, arbaztaz estalia. Josu Zabaleta

---

adokin *iz* galtzada harria. ik **galtzada 4**.

Lehenengo oin bat jarri **adokinetan**, gero bestea eta, horrela, aurrera segi, bizitzen segi. Lourdes Oñederra

Espaloietako **adokin** bakoitzean krimenaren aztarnak irakurtzen irakatsi zidatean, hormetako adreilu bakoitzean gizakiaren mezuei erreparatzen, oinatz bakoitza postal edo telegrama bat balitz bezala aztertzen. Joxean Agirre

Horretarako, espaloiko **adokin** gorriek osatzen duten lerro gorriari segitzea besterik ez dago. Patxi Zubizarreta

Deskargatu eta deskargatu jarraitzen zuten; iraulki orgek beren barazki karga botatzen zuten lurrera, **adokin** karga bat izan balitz legez. Karlos Zabala

---

adokinatu *izond* adokinez zolatua.

Udako goizaren epeltasun estreinatu berrian kanpaiak jotzen ari direla, ez dabil inor kale **adokinatuetan** eta zuk nabaritu duzu bizitza pasatzen ari dela. Lourdes Oñederra

Kale **adokinatu** garbiak. Lourdes Oñederra

---

adoleszente *(orobat **adolezente** g.er.)* **1** *iz* nerabea.

"Euskal biolentzia" esaten diat, orokorrean, biolentzia handiak eta txikiak, helduak eta **adoleszenteak** gogoan izanda. Mikel Hernandez Abaitua

Nolanahi ere, **adoleszentearen** antzeko begitandu zait Perurena halakoetan gehienetan ("inozente" esaten du berak bere buruaz). Patziku Perurena

Zeren ez heldutasuna eta ez hoztasuna edo buru-jabetasuna ere izan ohi baitira haurren eta **adoleszenteen** bertute. Joan Mari Irigoien

Euskal Herriko herri askotan kale hezitzaile programak daude; **adoleszenteekin** aritzen dira batez ere, babes, gidari eta lagun . Berria - Euskal Herria

Adoleszenteentzat defentsa bat izan litekeena, besteei buruz hitz egitea, guretzat, definizioen bilaketa izan da. Pako Aristi

Ramon Etxezarretak eta Luis Mari Mujikak **adoleszente** deitu zioten elkarri, azken horren bi poesia-liburu zirela eta. Berria - Harian

2 (izenondo gisa)

Komiki baten orrialdeetatik sortutako arketipo **adoleszente** ideializatu horietakoa dirudi orain, damatxoen mangarako eginiko silueta delikatua. Patxi Iturritegi

Berriro etxean, Letiziak barre egiten zuen Martaren emozio **adoleszentea** gogoratzean, baina bera ere eszitatua sentitzen zen, urduri, azken hogei urteetan ez bezala hunkitua. Xabier Mendiguren Elizegi

Kultura nuer bat konstrukto hutsa da, nuer zaharrak eta **adoleszenteak**, gizonezko eta andrazkoak daudelako eta denak diferenteak! Joxe Azurmendi

Enroilatzeko momentuari beldurra edukitzea ez al da **adoleszentea**? Pako Aristi

3

Hemen orain **adoleszente** mugimendu bat antolatu duzue kaleak txikitzeko, Katalunian zibilizatuki bizi diren bitartean. Mikel Hernandez Abaitua

---

adoleszentzia *(orobat **adolezentzia** g.er.)* nerabezaroa.

Adoleszentzian aldaketa handiak gertatzen dira. Berria - Euskal Herria

Ez nuen uste **adoleszentzian** ikasitako poema hau oraindik ere hitzez hitz oroituko nuenik. Patxi Zubizarreta

Adoleszentzian, poema horixe kopiatzen nuen estreinatzen nuen eguneroko bakoitzean. Patxi Zubizarreta

Funtsean, **adoleszentzian** denok egin dugun egiaren jolasa baino ez zen: [...]. Ramon Saizarbitoria

Tupustean eta inongo etenik gabe pasatu baitzen **adoleszentziaren** behe-lainoetatik helduaroaren egurats gorrira. Fernando Rey

Rousseauk bi aro bereizten ditu: **adoleszentziaren** aurrekoa eta ondorengoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Adoleszentziatik aurrera, "heziketa sexualak" duen helburua ezkontza egunera arte sexu-gogo oro itotzea da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haurtzaroan ez ginen konturatzen familiaren oinazeaz, **adoleszentziara** iritsi ginen arte, orduan hasten da bat haien sufrimenduaren berri jakiten. Mikel Hernandez Abaitua

Sexu edo maitasun mailan heldugabea den pertsona sekula ez da erabat helduko haurtzarokoa edo **adoleszentziakoa** baino egoera konplexuago batera. Bernardo Atxaga

Hila zen dagoeneko nire **adoleszentzia** gaizto eta zakarra: gizontzen ari nintzen, adinez zaharrago eta harrokeriaz dorpeago. Imanol Unzurrunzaga

Aitarengandik hartu nuen Simenonen nobelen zaletasuna **adoleszentzia** garaietan. Ana Urkiza

Adoleszentzia denboretan ere, Club Léo-Lagrangeko egitura laikoari esker, anitz ikasi nuen zineari buruz. Ana Urkiza

Nerabearen biluzia izeneko lan bat idatzi nuen orain dela urte parea, nire **adoleszentzia** aldiko oroitzapen moduko bat. Xabier Mendiguren Elizegi

---

adolezente ik **adoleszente**.

---

adolezentzia ik **adoleszentzia**.

---

adonia *iz* Adonisen ohorezko festa egunak.

Leku askotan (Asiria, Alexandria, Egipto, Judea, Pertsia, Zipre, Grezia, Erroma) Adonisen ohoretan **adonia** izeneko zortzi eguneko festak ospatzen ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

adonis 1 *iz* gizon ederra eta itxura onekoa.

Horien kristoak **adonisak** bezalakoak iruditu zitzaizkidan. Bernardo Atxaga

2 *adonis urdin*

Gogoko nuen haien izenei zerien doinua aditzea, amak hizpidera ekartzen zituenean: almirante gorri, pauma, aza-tximeleta, **Adonis urdina**. Mirentxu Larrañaga

3 *udaberriko adonis* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Udaberriko adonis ("Adonis vernalis") Ranunculaceae familiako landare-espeziea da, Eurasian eta iparraldeko Afrikan jatorria duena. ETC-entziklopedia

4 *udako adonis* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Udako adonis ("Adonis aestivalis") Ranunculaceae familiako landare-espeziea da, Eurasian jatorria duena. ETC-entziklopedia

---

adoptatu, adopta(tu), adoptatzen *(ETCn 84.798 agerraldi)* 1 du *ad* norbait seme edo alabatzat hartu legalki.

Adoptatu zuenean, gorra zuan ordurako umea. Jon Muñoz

Banekiela errumaniar andrearekin ezkondu eta haren alaba **adoptatu** zuela. Bernardo Atxaga

Kenkari handiagoak ezarriko dizkiete ezinduei, adineko herritarrei, etxebizitza erosi edota haurra **adoptatu** dutenei, seme-alabadun familiei eta bikoteei. Berria - Ekonomia

Atal horretan, homosexualei haurrak **adoptatzeko** eskubidea onartzea eskatzen zuen. Berria - Gaiak

Espainiako Gerran hildako aita-ama errepublikarren umezurtza dela sortzez eta Chirac senar-emazteek **adoptatu** zutela haur hartaz urrikaldu zirenean. Hasier Etxeberria

Kutxatila irekitzen zuenean jakingo zuen Henryk, hain zuzen ere, aita-amek **adoptatu** egin zutela, Virginia Cityko prostituta bat zuela benetako ama. Javi Cillero

Euskal Herritik ebakuatu zituzten haur gehienek ere onartzen dute **adoptatu** zituzten guraso-ordeek ongi hartu zituztela. Jokin Urain

Beste zure aita honek ez zuen zu **adoptatu** arteko onik izan, eta zure kargu egin ginen. Anjel Lertxundi

Egun berean ere lege bat onartu dute deputatuek, hunek baitio homosexual bikoteek haurrak **adoptatzen** ahalko dituztela. Herria

EAEko legearen zortzigarren artikuluak bikote homosexualei umeak **adoptatzeko** aukera ematen die. Berria - Euskal Herria

Adoptatzeko eskubidea onartu zaien arren, sendia osatzeko bide korapilatsua daukate oraindik bikote homosexualek. Berria - Harian

1.100 euro urtean, bigarren seme edo alaba jaio edo **adoptatzeagatik**. Berria - Euskal Herria

Kubako Zuzendaritza Demokratikoa izeneko taldeak azaldu zuenez, atxiloketak salatzeko Miamiko Biscayne Boulevardean egin zen ekitaldian parte-hartzaile bakoitzak 75 preso horietako bat "sinbolikoki **adoptatzea**" zen asmoetako bat. Berria - Mundua

· Izozturiko enbrioiak **adoptatzeko** munduko lehen gunea aurkeztu dute. Berria - Gaiak

2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Azoka batean Txinako haur **adoptatu** baten etorrerak gizartearen aldaketa erakusten du. Bere senarrarekin eta seme **adoptatuarekin** beheko pisuan bizi da Mimi eta goiko apartamentua alokatu egiten du. Berria - Kultura

Anaia **adoptatua** baitzen. Joxe Austin Arrieta

Alaba **adoptatua** naiz, eta zer? izenburuak berak ematen ditu ipuinaren nondik norakoak. Berria - Kultura

Adoptatuak eskubidea du bere gurasoak nor diren jakiteko. Berria - Euskal Herria

Dohainik eta inter vivos egindako edozein negozio juridiko dela-eta ondasun edo eskubideak eskuratzean ere, ezkontide, aurreko edo ondorengo ahaide, adoptatzaile eta **adoptatuen** aldekoak direnean, salbuespena egingo da. Iñaki Heras

3 besterena bereganatu.

Musikagintza ofizialak mesprezu berdinean eduki baldin bazuen ere, berehalako arrakasta ezagutu zuen tresna berriak, Europako burgesia guztiak **adoptatu** baitzuen bere igandeko txangoetarako, karriketako zalaparta utzita hirien inguru naturaletara jotzen zuenean egun pasa. Koldo Izagirre

Erreferentzia erreala neure egiten dut, **adoptatu**, begiratzeko eta azaltzeko, neure perspektibatik. Ana Urkiza

4 *alaba adoptatu*

Orain bi liburu berri kaleratu dituzte: Ez naiz ilehoria eta zer?, eta, **Alaba adoptatua** naiz, eta Zer? Berria - Kultura

5 *seme adoptatu*

Bere senarrarekin eta **seme adoptatuarekin** beheko pisuan bizi da Mimi eta goiko apartamentua alokatu egiten du. Harkaitz Cano

6 *ume adoptatu* *(corpusean ez dago; ETCn 30 agerraldi)*

Bai, bagaude guraso biologikoak, hau da, umea kendu ziotenak; umeak adopzioan hartu zuten guraso; **ume adoptatuak** eta baita apropiatuak ere. ETC-prentsa

Ni enteratu nintzen **ume adoptatua** nintzela 11 urte nituenean, lagun baten bidez. ETC-prentsa

Ume adoptatuek beren historia ezagutzeko prozesua apurka-apurka egin behar da, baina ezer ezkutatu gabe, Andoni Mendiak dioenez. ETC-prentsa

Ume adoptatuak eta biologikoak: jatorri desberdina, desio berdina. ETC-prentsa

Ume adoptatuek eramaten duten sozializazio prozesuan berebiziko garrantzia du eskolak. ETC-prentsa

Jaurlaritzak berriki jakinarazi du adin muga bat ezarri duela adopzio gurasoen eta **ume adoptatuen** artean: gehienez, 44 urtekoa. ETC-prentsa

Adibidez: hiru urteko **ume adoptatu** bat, Bulgariatik familia euskaldun batera ekarria. ETC-prentsa

Velimir Stevanovitx gazte mardul osasuntsua, jatorri ezezaguneko **ume adoptatua**, hurrengoa; ironikoa, errealista, saiatua eta gastuetan zuhurra; medikuntza amaitzen ari da Pragan. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adoptatu ahal** (4); **adoptatu egin** (3); **adoptatu nahi** (6); **adoptatu nahi duten** (3); **adoptatua naiz** (3); **adoptatuak bere** (6); **adoptatuak bere guraso** (4); **adoptatzeko aukera** (10); **adoptatzeko eskubidea** (19); **alaba adoptatua** (3); **bat adoptatu** (4); **bat adoptatzeko** (4); **edo adoptatzeagatik** (3); **haur adoptatu** (3); **haur bat adoptatzeko** (4); **haurrak adoptatzeko** (11); **haurrak adoptatzeko eskubidea** (3); **homosexualei umeak adoptatzeko** (3); **jaio edo adoptatzeagatik** (3); **umeak adoptatzeko** (11); **umeak adoptatzeko eskubidea** (6)

---

adoptatzaile 1 *izond* adoptatzen duena.

Adoptatuak bere guraso biologikoak bilatzeko erabakia hartzen duenean, guraso **adoptatzaileek** haurra galtzeko beldurra dute. Berria - Euskal Herria

Beste batzuk, aldiz, guraso **adoptatzaileak** hiltzen direnean, guraso biologikoak bilatzeari ekiten diote. Berria - Euskal Herria

2 *iz* adoptatzen duen pertsona.

Adoptatzaileek ere badute horretarako aukera. Berria - Euskal Herria

Dohainik eta *inter vivos* egindako edozein negozio juridiko dela-eta ondasun edo eskubideak eskuratzean ere, ezkontide, aurreko edo ondorengo ahaide, **adoptatzaile** eta adoptatuen aldekoak direnean, salbuespena egingo da. Iñaki Heras

---

adoptibo *izond* adopziozkoa.

"Joder, Iñaki", bizkarreko bat eman dio Juan Luisek Potoloari, "aurrena etorkizuneko nobioa, eta orain berriz amatxo **adoptiboa** ". Xabier Mendiguren Elizegi

---

adopzio **1** *iz* norbait seme edo alabatzat hartzea legalki.

Ezin zaie aukera berriei atea itxi; **adopzioa** , betiere, haurren eskubidea da. Berria - Euskal Herria

Ezin dira nahastu **adopzioa** eta harrera. Berria - Euskal Herria

Gero, Adela jartzen zen, eta esaten zidan haur bat ekartzeko asmoa zutela, edo, bestela, **adopzioan** hartuko zutela. Juan Kruz Igerabide

Adineko emakume batek hamaika haur zituen bere etxean gordeta, legez kanpo, **adopzioan** emateko. Berria - Gaiak

Hego Euskal Herrian foru aldundiek dute **adopzioaren** ardura. Berria - Harian

Gaur egun ere **adopzioaren** inguruko epaiketa asko egiten dira. Berria - Kultura

Kode Zibilaren aldaketek ez diote **adopzioaren** araudiari eragiten. Berria - Euskal Herria

Iruzurra egin izana eta **adopzioari** buruzko legeak hautsi izana leporatu zioten emakumeari. Berria - Gaiak

Lege egitasmo horrek apartheid sistema bultzatzen du, eta egin, gay eta lesbianei ezkontzarako eta **adopziorako** bidea ixteko egin dute. Berria - Euskal Herria

Homosexualen **adopziorako** eskubideaz mintzatu zen lehendabizi. Berria - Euskal Herria

Badakigu nola Zapateroren gobernamenduak legea bozkatua duen homosexualen arteko ezkontzaren baieztatzeko eta halaber halakoeri haurren **adopzioz** buraso bilakatzeko. Herria

Alemaniarra jatorriz baina ingelesa **adopzioz** . Berria - Kultura

Haurren interesen defentsak eskatzen du **adopzioa** bertan behera uztea. Berria - Euskal Herria

Iruñeko Familia Epaitegiak berriki plazaratutako ebazpenak bultzatuta hasi dira **adopzioa** gauzatu ahal izateko prozesua prestatzen. Berria - Euskal Herria

Ziurtagiri hori diputazioek ematen duten agiria da, **adopzioa** egingo duten pertsonak horretarako egokiak eta gai direla zehazten duena. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aipatu epaitegiak bi ume bikiren **adopzio** bateratua aitortu dio emakume bikote bati. Berria - Euskal Herria

Espainian Eliza eta ainitz herritar, partidu popularra ere horiekin, arras asaldatuak dira, manifestaldi haundi bat ere akulatuz, Zapateroren ausartzia heien kontra, hunek joan den apirilean bozkarazi baitzuen bere alderdikoeri ezkontza eta **adopzio** homosexualaren legea, hegoamerikaraino doalarik lege berri horren protesta. Herria

Nazioarteko **adopzioa** , ezustekoz eta une atseginez beteriko haurdunaldi luzea da. Berria - Harian

Azken urteotan gora egin du nabarmen nazioarteko **adopzioak** : 1995ean atzerriko 29 haur adoptatu ziren Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan; iaz, 397. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Adopzio -legea gorabehera, haren arabera emakumeak nahitaez senarra eduki behar baitu berea ez duen ume baten bigarren ama izateko, Max txikiak, artean sei hilabete eskasekoa, Jonathan-eta-Léarekin bat egin zuen Ravignan kaleko etxean. Jon Muñoz

Jakina, **adopzio** kasuan izan ezik, hor legeak berak agintzen baitu haustura. Berria - Euskal Herria

Adopzio prozesuaren helburua adingabea babestea da. Berria - Harian

Adopzio eskaeren eta haurren salerosketaren inguruan sakonago aztertzea ezinbestekotzat jotzen dute, giza trafikoarekin amaitzeko. Berria - Gaiak

Magala oraintsu legeztatu badute ere, aspaldi hasi ziren elkartzen, Gasteizko Legebiltzarrak Izatezko Bikoteen Legea onartu eta **adopzio** eskubidea aitortu zienean, hain justu. Berria - Harian

Denbora berean haurren **adopzio** baimena ere ematen baitu lege horrek, Espainiako Elizak garrazki kritikatu du hori ere haurren errespetuari eta onari pentsatuz. amaren jarrerak kalte egin dio Erresuma Batuko **adopzio** zerbitzuari. Herria

4 bereganatzea.

Hainbat ate ireki zizkiguten eta handik pixka batera bertakoak sentitzen ginen, kariokak burutik oinetaraino -Riok mundu guztia hartzen du **adopzioan** , ez du galderarik egiten, nahiz eta ez zaituen goxo tratatzen, baina hori beste kontu bat da-. Etruskoak greziar bihurtuak ziren **adopzioz** erromatar inperiogileen agintepean jarri aurretik. Gero eta jende gehiago ari da animalia sinestezinak **adopzioan** hartzen, eta haietaz gogaitu direnean, blaust! Karlos Zabala

Ideia berri eta ofizialek parrokiko gazteak berotzen zituen: ekumenismoa, kolegialitatea, erlijio -askatasun printzipioaren **adopzioa** . Piarres Aintziart

Afrikako arraza beltzeko frantziar hiritar bat zen; eta kultur **adopzioz** frantziarra zen beltz hark behar bezala zertu zuen bere erantzukizun ofiziala Frantziar Erresistentziaren aldeko aukera eginez. Iñaki Mendiguren

5 ***adopziozko alaba*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

2020ko urrian Durangoko Udalak Gurutzi Arregi etnografoa **adopziozko alaba** izendatzeko prozedura hasi zuen, Durangoko hamar bat lagunek egindako eskariari erantzunez. ETC-entziklopedia

Sasoi batean guztion ahotan ibili zen bere bizitza pribatua zela eta; izan ere, bere **adopziozko alabarekin** harremanak zeuzkan eta honek dibortzioa eta bestelako arazoak ekarri zizkion. ETC-entziklopedia

6 ***adopziozko seme*** *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Gero, ehiztari haiek, hiriaren **adopziozko semeak** diren ehiztari haiek itzultzen direnean, behin-behineko heroien pare hartuko dituzte harresi barneko hiritarrek. ETC-literatura, saiakera

Francori, esaterako, Nafarroako Urrezko Domina eman zioten, eta ugariak izan ziren, halaber, herri eta hirietan seme kuttun eta **adopziozko seme** izendatutako buruak. ETC-prentsa

Eumenes I.a, Fileteroren **adopziozko seme** eta oinordekoa izan zen, eta hau hil zenean hartu zuen Pergamoko tronua, K.a. 263an, Eumenes bera hil zen arte, K.a. 241ean. ETC-entziklopedia

Marokoko gerran kronista izan zen, eta horregatik probintziak "Nafarroako **adopziozko seme** " izendatu zuen. ETC-entziklopedia

Atentatuaren hurrengo egunean, Zaragozako Udaletxeak hiriko **adopziozko seme** izendatu zuen. ETC-entziklopedia

Ituna, urte horren amaieran ospatu zen, eta, baldintzetako bat, Ieyasuren bigarren semea, Ogi Maru, Hideyoshiren **adopziozko seme** bihurtzea izan zen. ETC-entziklopedia

Ullr eskandinaviar mitologiako jainkoa da, Sif-en semea eta Thor-ren **adopziozko semea** . ETC-entziklopedia

7 ***adopziozko seme-alaba*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) pl*

%96 pozik daude beren **adopziozko seme-alaben** gaur eguneko izateko moduaz; %90en iritziz, umerik jaso ez balute baino zoriontsuago bizi dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adopziozko seme-alaben abizenen kasuan, Kode Zibilak azken eraldaketaren ondoren xedatutakoa aplikatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erregistro fiskalen arabera pertsona baten ondareak behera egin badu eta sinkronikoki, beranduago, baina inola ere ez bi urte pasa ondoren, ezkontide edo bikotekide egonkorraren, ondorengoen, **adopziozko seme-alaben** edo horietako edozeinen ezkontideen edo bikotekide egonkorren ondareak, berriz, gora. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***adopziozko seme-alabatasun*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aldi berean, ondore horietatik bereizi da **adopziozko seme-alabatasunaren** eraketa. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 ***adopziozko ume*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Adopziozko umea. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adopzio bateratua (5); **adopzio eskubidea** (13); **adopzio eskubidea onartu** (3); **adopzioan emateko** (3); **adopzioaren inguruan** (3); **adopzioari buruzko** (3); **eta adopzio** (3); **homosexualen adopzio** (4); **homosexualen adopzio eskubidea** (4)

---

adoragai *izond* adorazio gaia.

Gizon handien irudiak ipin ditzagun kristautasunaren **adoragai** ziren arloteen zutarrien gainean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

adoragarri *izond* gurgarria, adoratua izatea merezi duena.

Izaki **adoragarria**, ez dut sekula zurea bezalako sentiberatasunik ikusi, sekula ere ez hain gogo samurrik!. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nik, Parisko kaleetan ondo-ondotik igaro zaizkidan ume **adoragarri** horiek guztiak gogoratzen ditudanean, neure burua urkatzeko moduko amorraldiak izaten ditut. Josu Zabaleta

Objektu **adoragarri** hori beti maite beharko bagenu, inoiz abandonatu beharko ez bagenu, kasu horretan ere nabarmenkeria bat litzateke, zalantzarik gabe, baina barkagarria, bederen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Oi maita zaitzue Jesusen zauri **adoragarriak**! Xipri Arbelbide

Gizon gazte bat, oso aberatsa, arima prestua eta suharra, bihotz eskuzabala, neska guztiz eder, eder baino gehiago, **adoragarri**, polit bezain graziaz bete, xarmagarri, on batez maitemintzen da, eta ezkondu egiten da. Josu Zabaleta

Berriro itzuli da, Hildako emakumea, Hildako ederra, **Adoragarria**, Misteriozkoa, Ezezaguna, gauero eduki dut. Josu Zabaleta

---

adorarazi, adoraraz, adorarazten *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* du *ad* adoratzera behartu. ik **gurrarazi**.

Tenploetan **adorarazi** zuen. ETC-prentsa

Garai hartan Zophiro izeneko azti batek sorgindurik zituen soloroak eta bere irudia **adorarazi** zien, jainko bat bailitzan. ETC-literatura, saiakera

Itxaropena ez baita Aberatsen Kristoa deitu duten gurutze hori fetitxe gisa **adoraraztea**, munduaren izateko arrazoia hori balitz bezala (gure Eliza ez duk heretikoa, simoniakoa baizik); ez baitu esan nahi munduaren zentzua inperio espainiar bat sortzea dela, edo ordena bat ipintzea, non ezer ere entzuten ez den, sufritzen ari direnak negar egiteko ezkutatu direlako! ETC-literatura, saiakera

---

adoratu *(ETCn **458** agerraldi)*, adora(tu), adoratzen **1** du *ad* gurtu.

Sartu haren aurrera eskaintzak eramanez, **adora** Jauna, bere santutasunez agertzean. Elizen arteko biblia

Adora ezazue zerua eta lurra, itsasoa eta ur-iturriak egin zituena. Elizen arteko biblia

Mundu osoak **adora** zaitzala eta zuri kanta, / abes biezaio gorazarrea zure izenari. Askoren artean

Idatzia dago: **Adoratu** Jauna, zeure Jainkoa, eta bera bakarrik gurtu. Elizen arteko biblia

Lurreraino makurturik, Jauna **adoratu** eta goretsi zuten, esanez: "Ona baita, haren maitasuna betikoa baita". Elizen arteko biblia

Poz-pozik **adoratuko** ditugu Jupiter, Herkules edo Pallas; baina jada ez dugu ezer nahi berez mugitzen den unibertsoaren egile txundigarriarengandik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bekatu egin dugu zure aurka, gure Jainko horren aurka, zu baztertu eta Baalen idoloak **adoratuz"**. Elizen arteko biblia

Bekatu egin zuten Jainkoaren kontra, jainko arrotzak **adoratuz**. Elizen arteko biblia

Baal sasijainkoa **adoratu** zuen eta beraren aitzinean ahozpeztu zen. Elizen arteko biblia

Goiz guziz, erreka bazterrean sortaldeari buruz itzulirik, eguzkia **adoratzen** zuen, begiak hetsirik, geldi-geldia, besoak zabalik, bi eskuen ahurrak eguzkiari buruz irekitzen zituela. Aurelia Arkotxa

Adoratzen dutenek, izan ere, egiaren Espirituak eraginda behar dute **adoratu**. Askoren artean

Oi, ene laztana! **Adoratzen** zaitut. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hara, bertutea asmakeria hutsa da, eta hura **adoratzeak** sakrifizio gogorrak eskatzen ditu, berezko joeren aurkako borroka etengabeak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta entzun eta ikusi nuenean, erakutsi zidan aingeruaren oinetan ahozpeztu nintzen **adoratzeko**. Elizen arteko biblia

Gure salbatzailearen **adoratzeko**. Herria

Zinez **adoratzen** diat. Antton Olano

Bere ejerzitoa itsasertzera gidatu eta zera esan zuen gero, dena broma zela, arerioa asmatu egin zuelako; jaungoiko bezala **adoratua** izan nahi zuen. Bernardo Atxaga

2 irud/hed

Semea **adoratzen** zuen, dardara batean bizi zen ezer gertatuko ote zitzaion, baina, hala eta guztiz ere, militarra izatea nahi izan zuen. Koro Navarro

Adoratzen zintuen, Walden doktore, baina, esaerak dioen bezala, gizonak asma, Jainkoak xeda. Koro Navarro

Gurtu, **adoratu** egiten dugu liburua. Joxerra Garzia

3 (era buruta izenondo gisa)

Estutu eta herioaren espasmoak zurruparaztea gorputz **adoratu**, mardul eta bizitzaz bete hari-, agian Maiteak alde egitea. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adoratu behar (7); **adoratu egiten** (4); **adoratu eta** (4); **adoratzen duten** (4); **adoratzen dutenek** (3); **adoratzen zaitugu** (8); **adoratzen zaitut** (4); **adoratzen zuten** (3); **eta adoratu** (3); **eta hura adoratzen** (3); **hura adoratzen** (3)

---

adoratzaile **1** *izond* adoratzen duena.

Baina *cultor* ere gizon egoiliarra da eta, beste zentzu batzuetan, gizon laguna, babeslea, zaindaria, eta erlijioan gizon gurtzailea, jaureslea, **adoratzailea**. Askoren artean

2 *iz* adoratzen duen pertsona.

Zuen esku uzten ditut **adoratzaile** horiek. Elizen arteko biblia

Bildu niregana Baalen profeta guztiak eta haren **adoratzaile** eta apaiz guztiak. Elizen arteko biblia

Begira ezazue ongi hemen, zeuen artean, Jaunaren **adoratzailerik** ba ote dagoen, ala Baalenak bakarrik zaudeten. Elizen arteko biblia

-Mazdeo! Fedearen etsai! Elkartu ala ez, zuri zer axola zaizu? Zu suaren **adoratzailea** zara-eta. Fernando Rey

Eliza! Euroaren **adoratzaile** horiek oro ikustean, baztertuen zuzenak ahanzten dituztela, eta zu horieri so ixilik konpreni ezazu nola erretzen nauzun. Herria

Herri xehea eta aristokrazia, biak ere diruaren, jokoaren, kirolen, nazionalismoaren, arrakastaren eta publizitatearen **adoratzaileak** izaki, berdin-berdinak iruditzen zitzaizkion ia. Juan Garzia

Benetako **adoratzaileek** egiaren arabera eta Espirituak eraginda adoratuko dute Aita. Askoren artean

Baina badator ordua -hobeto esan, heldua da-, egiazko **adoratzaileek** Aita egiaren arabera eta Espirituak eraginda adoratuko dutena. Elizen arteko biblia

Emakumeen **adoratzaile** txepelak euren dulzinea lotsabakoaren oinetan uzten ditut. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez dezagun ahantz gizaki libreak sortu nahi ditugula, eta ez jainko baten **adoratzaile** doilorrak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bozkario eguna izan zen hura Mauleko erreformatuendako, Zuberoako hiriburuan -idolo- **adoratzaileen** habia halakoa! -ez baitzen anarteraino halako ospakizunik ikusi. Aingeru Epaltza

Euskal Hiri hori bat eta bakarra da, baina jakina da hiriaren erdi-kalean eta etorbide zabalean luzitzea maite duten hiri-**adoratzaile** gartsuentzat berez dela hiria pluraltasunaren eta askatasunaren erresuma, herria ez bezala. Iñaki Segurola

---

adoratze *iz* gurtzea, adorazioa.

Baina Euskal Herriko toki guztietan geratzen dira **adoratze** zahar honen arrastoak eta aztarnak, antropologoak ongi ohartu direnez. Pello Salaburu

Ortzirale Sainduz: Pasionearen irakurtzea eta Kurutzearen **adoratzea**, Itsasun aratsaldeko 3 orenetan eta Luhuson aratseko 8 orenetan. Herria

Egun berean arratsaldeko 5 orenetan eginen da Sakramendu Sainduaren **Adoratzea**. Herria

---

adorazio 1 *iz* adoratzea, gurtzea.

Camp Nou-ra ateratzen nintzen bakoitzean jokalari guztietan onena izaten saiatzen nintzela, ikusleen txaloak eta mirespena jasotzeko, baita haien maitasuna eta **adorazioa** ere. Joan Mari Irigoien

Erromako inperioan Zesar jainkotzat jo, eta enperadoarekiko **adorazioa** sortu zen. Patziku Perurena

Ez da egia nire **adorazioa** fanatismoraino eramaten dudala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bainu [...]: Zeremonia mistiko suerte bat, **adorazio** erlijiosoa ordezkatu duena, zenbaterainoko eragin izpirituala duen erabaki gabe dagoen arren. Xabier Olarra

Irudien **adorazioaren** eta bertze superstizioen kontra. Aingeru Epaltza

Askok uste izan dute crux ansata antzinako **adorazio** falikoko gurutzearen berdin-berdina dela, baina horretaz dakiguna baino askoz lehenagoko arrastoak aurkitu izan dira. Xabier Olarra

Ideien munduko zera hori erlijiozko **adorazio** edo ekonomiazko fakturazio baten objetu ilun bat baizik ez da. Iñaki Segurola

Europatik Teatro Colón-era heldutako orkestra eta kantariak ere ibili ohi zituzten ahotan, ia **adorazioz** aipaturiko sinfonia eta opera izenak. Xabier Montoia

Frantziskoren otoitzak gorespen, esker on eta **adoraziozkoak** baitira normalean. Askoren artean

Gentile da Fabriano-ren *Errege magoen* ***adorazioa*** (1423), koadroaren goiko aldean. *Artzainen* ***adorazioa*** Alonso Canorena dela sinetsita dago Navarrete, "azterketa erradiografikoen bidez ikusi ahal izan ditugun pigmentuengatik eta giza figuraren izaera eskultorikoagatik". Josu Zabaleta

2 ***erregeen adorazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Erregeen gurtza edo **Erregeen adorazioa** arteak maiz irudikatutako Natibitateko pasarte bat da, askotan artzainen gurtzarekin batera irudikatzen dutena. ETC-entziklopedia

Jaiotzan Jesus haurtxoaren jaiotza eta hiru **erregeen adorazioa** ikusten dira. ETC-prentsa

Epifania egunean, urtarrilak 5, **Erregeen adorazioa** irudikatuko dute. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artzainen adorazioa** (3)

---

adorazione *iz ipar* adorazioa.

Ortzirale Sainduz: Irulegin: 15 etan: Kurutzearen Bidea, Baigorrin, 17 etan: Jesusen Pasionea eta Kurutze Sainduaren **adorazionea**. Herria

Ortziralean, Apirilaren 18an, arratsaldeko 6etan, kurutzearen **adorazionea**, Izturitzen. Herria

Abendo 21 ean bi herrien **Adorazionea** ginuen Donoztirin. Herria

Donostirira joan -han **adorazione** aitzineko hiru egunetan mintzatu beharra bainintzen- arratsaldean haurrak konfesatu, lehen predikua herriari astirian. Marzel Etxehandi

Aldare bat egiten zen eliza zolan, dena xirio eta lore, xirioen usaina elizaren bete, gauaz, berantean, jendea hor egoiten zen **adorazionezko** otoitzetan, beilan. Michel Oronoz

---

adore 1 *iz* bizitzako oztopoei aurpegi emateko, gauzei ekiteko gaitasuna. ik**kuraia**.

Izan **adore** eta ekin lanari! Elizen arteko biblia

Harryk bere **adore** guztia behar izan zuen. Iñaki Mendiguren

Mandatariek **adore** gabe utzi gaituzte esanez, hango jendea gu baino handiagoa eta indartsuagoa dela. Elizen arteko biblia

Ordubete geroago ziegako harmailetan gora zihoala, Harryk burua irakiten zuen eta **adore** gabe sentitzen zen. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Adore handia behar da arerioari aurre egiteko, baina ez da **adore** gutxiago behar adiskideei aurre egiteko. Iñaki Mendiguren

Israeldar askok sendo iraun zuen eta, **adore** handiz, ez zuen janari kutsaturik hartu. Elizen arteko biblia

Hil gaitezen **adore** osoz geure senideen alde, gure izen ona zikintzen utzi gabe. Elizen arteko biblia

Heroien **adore** haserrerik gabekoa. Karlos Zabala

Anaia dardarka hasi zen ikaraz eta, ez dakit zer sumatu zuen, ez zuen lehengo **adore** bera. Askoren artean

Herriak huts egitean, zintzo iraun zuen bere barruko **adore** eta indarrez. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan)

Judasek bere gizonei **adore**-hitza eman. Elizen arteko biblia

Elkarri laguntzen diote idologileek eta **adore**-hitzak esaten elkarri. Elizen arteko biblia

4 ***adore eman***

Hara iritsi eta, Jainkoak bere onginahiaz haien artean egina ikustean, biziki poztu zen Bernabe, eta bihotz-bihotzez Jaunarekiko leial irauteko **adore ematen** zien. Elizen arteko biblia

Artisauak zilarginari **ematen** dio **adore**, mailukari leuntzaileak ingude-jotzaileari, esanez: "Ederra soldaketa! Elizen arteko biblia

Nork **emango** dio **adore**? Askoren artean

Emango nizueke **adore** nire ahoaz, eta baretasuna neure ezpainei eraginez. Elizen arteko biblia

Emaiozu adore, berak eskuratuko baitio lurraldea Israel herriari. Elizen arteko biblia

Emaiok horrela **adore** Joabi. Elizen arteko biblia

Bedeinka itzazu, Jauna, eta **eman adore**, onartu atseginez beraien egitekoa. Elizen arteko biblia

Eman argibideak Josueri; **eman** bihotz eta **adore**, bera igaroko baita herria gidatzen Elizen arteko biblia

5 *adkore emaile*

Zu nagusi garaipen-egunean; Santua agertzean, bera izango duzu **adore-emaile**, bera egunsenti eta gaztetasun-ihintz. Elizen arteko biblia

Hala egin zuen Josek, apostoluek Bernabe -hau da, **Adore emaile** - deitu zutenak. Elizen arteko biblia

6 *adore izan*

Zer duzu, Ester? Zeure senarra nauzu. **Izan adore**! Elizen arteko biblia

Izan adore, Zorobabel! Elizen arteko biblia

-Izan **adore**, emakume, ez izan beldurrik, nik ez baitiot sekula kalterik egin mundu osoko errege Nabukodonosor zerbitzatu nahi duenari. Jose Antonio Mujika

Izan adore, Jotzadaken seme Josue apaiz nagusia! Elizen arteko biblia

Zuk **izan** bihotz eta **adore**! Elizen arteko biblia

7 *adore hartu*

Halatan ere, etsi ordez, **adore hartzen** zuen. Anjel Lertxundi

Azkenean, nolanahi ere, **adore hartu**, eta urrats sendoz abiatu nintzen, eremua ahalik eta lerro zuzenenean gurutzatzeko ahaleginean. Koro Navarro

Begietara begira gelditu zitzaidan, **adore hartzeko** legez. Koldo Izagirre

Adore hartu eta zera esan zion, logelaren atzealdetik: [...]. Karlos Zabala

- **Adore hartu**, zaldi paregabe hori! oihu egin zuen Mikel Strogoffek-. Karlos Zabala

Bautistak, gaskoiaren adibidearekin **adore hartuta**, zortziko frantses-euskaldun bat kantatu zuen. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adina adore (9); **adina adore bildu** (3); **adore apur** (6); **adore apur bat** (6); **adore bildu** (7); **adore bildu eta** (4); **adore emaile** (6); **adore eman** (27); **adore eman nahian** (3); **adore eman nahirik** (4); **adore eman zion** (5); **adore emanez** (13); **adore emateko** (24); **adore ematen** (24); **adore ematen zion** (5); **adore ematera** (4); **adore eta** (18); **adore falta** (4); **adore gabe** (5); **adore gutxiago** (3); **adore guztia** (8); **adore handia** (6); **adore handiagoa** (4); **adore handirik** (4); **adore handirik gabe** (3); **adore handiz** (9); **adore hartu** (7); **adore hori** (5); **adore izan** (3); **adore osoz** (3); **adore pixka** (8); **adore pixka bat** (8); **adore politikoa** (3); **adorea behar** (7); **adorea berreskuratzeko** (3); **adorea bildu** (15); **adorea bildu eta** (4); **adorea eman** (19); **adorea eman nahian** (3); **adorea eman zien** (3); **adorea eman zion** (5); **adorea emango** (3); **adorea emateko** (7); **adorea ematen** (17); **adorea erakutsi** (6); **adorea ere** (3); **adorea eta** (40); **adorea eta kemena** (5); **adorea ez** (3); **adorea falta** (4); **adorea falta izan** (3); **adorea galdu** (9); **adorea galdu eta** (3); **adorea galduko** (3); **adorea galdurik** (3); **adorea galtzen** (4); **adorea har** (4); **adorea hartu** (8); **adorea harturik** (3); **adorea izan** (16); **adorea izan zuen** (5); **adorearen eta** (8); **adoreari dagokionez** (3); **adoreari esker** (4); **adorerik bildu** (4); **adorerik ez** (19); **adorerik gabe** (18); **adorerik izan** (27); **adorerik izan ez** (4); **adorerik izango** (5); **adorez bete** (11); **adorez betea** (4); **adorez beterik** (9); **adorez beteta** (4); **adorez egin** (3); **adorez eta** (10); **adorez gainezka** (4); **aholku eta adore** (5); **aski adore** (5); **baina adorea** (4); **baino adore** (8); **baino adore handiagoa** (3); **baten adorea** (3); **batere adorerik** (3); **bere adore** (6); **bere adore guztia** (3); **bere adorea** (3); **berebiziko adorea** (3); **bihotz eta adore** (10); **buruari adore** (3); **da adore** (4); **da adorea** (3); **du adorea** (3); **duten adorea** (3); **egiteko adorea** (12); **egiteko adorerik** (8); **egiteko adorerik izan** (4); **elkarri adore** (3); **eman adore** (5); **emateko adorerik** (3); **erakutsi zuen adorea** (3); **erakutsitako adorea** (4); **ere adorerik** (3); **esateko adorea** (3); **esateko adorerik** (4); **eskatzeko adorea** (3); **eta adore** (51); **eta adore eman** (5); **eta adore emateko** (3); **eta adore ematen** (4); **eta adorea** (39); **eta adorea eman** (3); **eta adoreak** (6); **eta adorearen** (6); **eta adoreari** (4); **eta adoreari esker** (3); **eta adorerik** (3); **eta adorez** (20); **eta adorez bete** (6); **ez galdu adorea** (3); **ez nuen adorerik** (12); **ez zuela adorerik** (3); **ez zuen adorerik** (4); **galdu adorea** (3); **haren adorea** (8); **hari adore** (3); **hartzeko adorea** (3); **hartzeko adorerik** (3); **horrek adorea** (3); **horretarako adorerik** (4); **indarra eta adorea** (3); **irauteko adore** (3); **izan adore** (28); **izan adorerik** (4); **jarraitzeko adorea** (4); **jotzeko adorerik** (3); **kemen eta adore** (4); **kemena eta adorea** (4); **nahiko adore** (3); **nahikoa adore** (3); **neure buruari adore** (3); **nire adorearen** (3); **nuen adorerik** (12); **nuen adorerik izan** (7); **zen adore** (3); **zion adoreaz** (3); **zuela adorerik** (3); **zuen adorea** (7); **zuen adorerik** (4); **zuen adorerik izan** (3); **zuten adorea** (3)

---

adoreberritu, adoreberri(tu), adoreberritzen da/du *ad* adore berria eman edo hartu.

Akaso **adoreberrituko** zen ikusirik, kaleetako zarramarra zaporegabean, gertatutakoak ez zituela gauzak kutsatu. Juan Garzia

Musika horrek **adoreberritu** egin zuen mezulari gaztea; barrena alaitu zion. Felipe Juaristi

-Sinetsidazu, Ángeles, zuk beti **adoreberritzen** nauzula. Juan Garzia

Akaso **adoreberrituko** zen ikusirik, kaleetako zarramarra zaporegabean, gertatutakoak ez zituela gauzak kutsatu. Juan Garzia

Jantzi eta karrikara atera zen Joanes, ohean iragandako gauaren ondorioz gorputz-arimak **adoreberriturik**. Felipe Juaristi

---

adoregabe *adlag* adorerik gabe.

Hura agertzean, ikara dira Egiptoko idoloak, **adoregabe** gelditzen egiptoarrak. Elizen arteko biblia

---

adoregabegarri *izond* adoregabetasuna adierazten duena.

Alabaren jokamolde hori **adoregabegarria** izanagatik Aurorarentzat, beharrezko garbiketa iruditzen hasi zitzaidan, Lucy bere bizitzaren alde borrokan ari zelako seinale. Oskar Arana

---

adoregabetasun *iz* adorerik eza.

Latinez *acedia*, autore monastikoek maiz aipatzen duten gaitz espirituala; gogo edo **adoregabetasuna** adierazten du, espiritu-bizitzarekiko interesa galarazten duena. Askoren artean

---

adoregabetu, adoregabe(tu), adoregabetzen **1** du *ad* adorea galarazi.

Nirekin etorri zirenek **adoregabetu** egin zuten herria; ni, ordea, Jaunarekiko, ene Jainkoarekiko, guztiz leial izan nintzen. Elizen arteko biblia

Zergatik zabiltzate israeldarrak **adoregabetzen**, Jaunak emandako lurraldera igaro ez daitezen? Elizen arteko biblia

Ofizialek beste hau ere esango diote gudarosteari: "Beldurrez eta kikildurik dagoena, itzul bedi etxera, borroka-lagunak **adoregabe** ez ditzan. Elizen arteko biblia

• **2** da *ad* adorea galdu.

Hori guztia jakitean, **adoregabeturik**, arnasa ere galduta gelditu gara zuen aurrean. Elizen arteko biblia

---

adoregarri **1** *izond* adoretzen duena.

Hau irakurtzean, poz-pozik gelditu ziren hitz **adoregarri** haiekin. Elizen arteko biblia

Inperatibo horiek batera kontsideratuz gero, emaitzak ez dira oso **adoregarriak** izango lortu nahi den helbururako. Piarres Xarriton

Honaino, gure ikerketaren emaitzek **adoregarriak** dirudite. Iñaki Mendiguren

• **2** *iz* adoretzen duen gauza.

Ez ziren fidatzen Alberto koldarraz, eta horregatik pizgarri eta **adoregarriren** bat eskaintzea erabaki zuten, Eugeniaren eskua esate baterako. Felipe Juaristi

Arren degizugu hemen gelditzera makur zaitezen, gure begion atsegin eta **adoregarri**, gure gorte-gizon gehien, kusu, eta seme. Juan Garzia

adoretsu 1 *izond* adorez betea.

Emazte **adoretsua** senarraren poza: bakean emango ditu honek bere bizi-urteak. Elizen arteko biblia

Orain gazte **adoretsua** denari ilea laztuko litzaioke, ikaraz, zahartzaroko bere potreta erakutsiko baliote. Jose Morales

Filistearren lerro artetik gizon **adoretsu** bat atera zen; Gat-ekoa zen eta Goliat zeritzan; ia hiru metroko gizona zen. Elizen arteko biblia

Jeroboam gizon **adoretsu** eta indartsua zen. Elizen arteko biblia

Ordura arte topatu ez nuen moduko giza alea zen, eskuliburuko faxista bat, ergela eta **adoretsua**, zeina armen lanbideak (Afrikan eta Espainian borrokatua zen, eta harrotzeko aukera ematen zion horrek gure aurrean) ezjakintasun sendoz eta zozokeria larriz egoki apaindu baitzuen. Juan Garzia

Adoretsua eta ausarta da Harry Potter! Iñaki Mendiguren

Laurogeita zazpi mila gudari **adoretsu** ziren. Elizen arteko biblia

Soldadu **adoretsua** izan zen, eta bere portaera eredugarria izan da azken unera arte. Harkaitz Cano

Abias laurehun mila gudari aukeratu eta **adoretsurekin** abiatu zen borrokara. Elizen arteko biblia

Hona hemen Davidek, bere erregealdian, israeldar guztiekin batera, izan zituen buruzagi **adoretsuak**. Elizen arteko biblia

Davidek, hori jakin zuelarik, Joab bidali zuen bere gudaroste **adoretsuarekin**. Elizen arteko biblia

Ona izango naiz neure herriarentzat; gerran, berriz, **adoretsua**. Elizen arteko biblia

Baina zaldun txit **adoretsua** ez zen aztoratu gainera zetozkion borrokaldiengatik. Askoren artean

Bihotz **adoretsu** horrek niri traizio egiteko, arrazoi bakarra egon litekek munduan, niganako leialtasuna baino ahaltsuagoa: maiteari leialtasuna. Juan Kruz Igerabide

Honek sortzen ditu espiritu libre **adoretsuak** eta buru argiak, eta gizonak bertutetsu bihurtzen. Juan Martin Elexpuru

Simeonen leinuko zazpi mila eta ehun gizon, borrokarako **adoretsu**. Elizen arteko biblia

Erori dira **adoretsuak**, hondatu dira borrokarako armak! Elizen arteko biblia

Gauean eskerrak eman nizkion Peterri denetan **adoretsuena** zelako. Josu Zabaleta

Gizona ozta-ozta ausartzen da Siberiako estepetan edo Asiaren erdialdeko lautadetan barneratzen; **adoretsuenak** ere atzera egiten du Afrikako basamortuetan, Amerikako zelaietan; bipilenak ere amore ematen du Australiako lurralde zabaletan, poloetako izotzezko eremuetan. Karlos Zabala

Gizartea egiten ari diren urrats "etengabeak eta **adoretsuak** " txalotu zituen. Berria - Mundua

Omriren gainerako jardunak eta ekintza **adoretsuak** "Israelgo Erregeen Kronika" liburuan daude idatziak. Elizen arteko biblia

" **adoretsuaren** ordez, denbora gehiegi pasatzen dudala irakurtzen eta gutxiegi ibiltzen naizela bota dit. Anjel Lertxundi

Torero ausart bezain **adoretsuaren** fama zuen. Joan Mari Irigoien

2 (adizlagun gisa) ik **adoretsuki**.

Adoretsu esan zuen Pavel Ivanovitxek zin egingo zuela, baina ez dakigu bere hitza betetzeko adorerik izango ote zuen. Jose Morales

Adoretsu nago, ene Jainko, **adoretsu**. Askoren artean

Heure bulegoan sartu eta lanari ekin diok **adoretsu**. Pedro Alberdi

Eta, apaizaren gonbitarekin batera, berriro altxatu zen amona, **adoretsu**. Joan Mari Irigoien

-Behar duguna entretenimendu pixka bat da -esan zuen Hermionek **adoretsu**, ostegun arratsaldean Edabeetako bi eskola-orduak hurbildu ahala-. Besteengana jiratu, eta **adoretsu** mintzatu zitzaien Josu R: [...]. Iñaki Mendiguren

Sartu barrura eta ez larritu, **adoretsu** agertzea hobe baituzu, atzerritik etorrita ere. Juan Kruz Igerabide

Adoretsu jokatuz, menperatu zituen amalektarrak ere, Israel bere zapaltzaileengandik askatuz. Elizen arteko biblia

Horregatik, neure bizia orain **adoretsu** emanez, nire zahartzaroari dagokion duintasunez agertuko naiz. Elizen arteko biblia

Bere gudarostearen hondamena eta Judasen gudarien ausardia ikusirik -bizitzeko nahiz **adoretsu** hiltzeko prest baitzeuden-, Lisiasek Antiokiara jo zuen. Elizen arteko biblia

Neskatxak **adoretsu** eusten zion nekeari. Karlos Zabala

Zorionak ematen dizkizut, bertutearen bidetik **adoretsu** aurrera zoazelako, zeure alabekin batera. Askoren artean

Luza gabe eroriko litzateke berriro, duela gutxi hain **adoretsu** hautsi duen uztarriaren menpean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Errebolberra aldean zeramala egiaztatu, eta kalerantz abiatu zen, urduri samar baina **adoretsu**. Migel Angel Mintegi

Aurrekontu txikienarekin urtez urte eutsi dio mailari, **adoretsu**, eta, beste ezer baino lehenago, meritua aitortu behar zaio. Berria - Kirola

Indartsu sentitzen genuen gure burua, gogoz betea, **adoretsu** eta kementsu. Pello Salaburu

Kantuan hasi ziren presoak, gero eta ozenago, gero eta entzungarriago, gero eta **adoretsuago**. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adoretsu eta (15); **adoretsu hark** (3); **adoretsu izan** (3); **adoretsu nago** (4); **adoretsua eta** (9); **adoretsua eta ausarta** (3); **adoretsua izan** (7); **adoretsua zen** (4); **adoretsuak eta** (4); **adoretsuen artean** (4); **bezain adoretsu** (3); **eta adoretsu** (14); **eta adoretsua** (13); **eta adoretsuago** (5); **eta adoretsuak** (5); **eta gizon adoretsu** (4); **gizon adoretsu** (11); **gizon adoretsua** (5); **gizon adoretsuak** (3); **gudari adoretsu** (9); **gudari adoretsuak** (5); **gudari adoretsuen** (4); **hain adoretsua** (3); **kementsu eta adoretsu** (3); **oso adoretsu** (3)

adoretsuki *iz* adore handiz. ik **adoretsu 2**.

Aski **adoretsuki** heriotzaren zain nengoen egun haietan, hain zuzen, ororen gura zorrotz bat sumatzen nuen sastaka neure baitan, imajina zitekeen giza esperientzia ororena, eta arnegu egiten nion aurreko neure bizialdiari, hartaz gutxi eta gaizki gozatu nuela iruditzen baitzitzaidan. Juan Garzia

adoretu da/du *ad* adore hartu edo eman, adorez bete.

Arriskuen aurrean **adoretzen** dena. Berria - Mundua

Orain, **adore** zaitezte eta izan sendo. Elizen arteko biblia

-Goazen- **adoretu** ninduen Taniak. Jon Muñoz

Inork behartu gabe, **adoretu** beharrik gabe, zer egin behar zuen pentsatzeko geratu ere egin gabe, lasai-lasai ahoa ireki eta hizketan ari zen. Oskar Arana

Era berean, herritarrei petrolio kontsumoa murriztu dezaten dei egin die, eta ibilgailu hibridoak erostera **adoretu** ditu. Berria - Ekonomia

Profeta bezala mintzo dena, berriz, gizakiei mintzo zaie: fedean hazten laguntzen die, **adoretu** eta kontsolatu egiten ditu. Elizen arteko biblia

Besamotz izateak **adoretu** eta bultzatu egiten baitzuen pisu handiagoak garraiatzera, kikildu beharrean. Joan Mari Irigoien

Bereak egiten zituen haien oinazeak eta gupidazko hitzez **adoretzen** zituen, bestelako laguntzarik eman ezin zienean. Askoren artean

Jainkoak **adoretzen** gaitu Ebanjelioan, zeruko Aitari eska diezaiogun, betea izan dadin gure poza. Joan Mari Lekuona

Frantzisko dohatsuak, bere burua **adoretu** nahirik izuak har ez zezan, honela hitz egin zion suari: [...]. Patxi Ezkiaga

Idazle desmotibatuak **adoretzen**, idazle alferrak aupatzen, nartzisoak balakatzen, zalantzatiei segurantza ematen, seguruegiei frenoa jartzen. Jon Alonso

Durduzadura nabari zen batzuen aurpegietan, ez zuten imajinatu ere egingo beren erreakzio izutuek **adoretu** egiten gintuztela gu. Anjel Lertxundi

Gogora zetorkidan, esate baterako, Elsbethek gorroto ziola Hermannen juduenganako herrari, eta horrek **adoretu** egiten ninduen idaztera. Anjel Lertxundi

Adore ezazue, beraz, elkar hitz hauekin. Elizen arteko biblia

Beren eskumeneko probintzia eta bizilekuetan koka bitzate anaiak, eta sarri bisita eta espiritualki aholka eta **adore** bitzate. Askoren artean

Edariaren beroak **adoreturik**, kalera irten eta portu aldera abiatu nintzen kresalak erretako kale meharretan aurrera. Anjel Lertxundi

Errege Henrikek gazteluko murruetatik **adoretu** zuen bere armada. Aingeru Epaltza

Ez duzue erretxina triste baten argirik ere! -hortza artean esan, eta zaldiak **adoretu** zituen-: Axa, zaldiak! Anjel Lertxundi

Jainkoaren gizona, gotzainaren hitz haiekin, pozez gainezka eta **adoretuta** jaiki zen. Askoren artean

Ez duzue erretxina triste baten argirik ere! -hortza artean esan, eta zaldiak **adoretu** zituen-: Axa, zaldiak! Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adoretu egin (16); **adoretu egiten** (8); **adoretu eta** (6); **adoretu nahi** (4); **adoretu nahi izan** (4); **adoretu nahian** (7); **adoretu nahirik** (3); **adoretu ninduen** (3); **adoretu zituen** (7); **adoretu zuen** (6); **adoretzen du** (3); **adoretzen zituen** (7); **burua adoretu** (4); **eta adoretu** (7)

---

adorez *adlag* adoretuta.

Brasilen Juan Pablo Montoyak bikain irabazi zuen, garbi, **adorez**. Berria - Kirola

Pedagogoek, medikuek eta apaizek **adorez** ekin zioten lanari, Rousseau maisu handiaren erakutsiak gauzatzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Adorez maitatu behar da. Ander Irizar

Orduan Safo sartu zen tartean eta esan zuen, **adorez** esan ere, Haydn zitekeela Egeak ikusitako gizona. Felipe Juaristi

-Beraz, zurekin ikasi zuen - **adorez** egin nuen aurrera, jakinik ere entzun nahi ez nuen zerbait entzungo nuela. Javi Cillero

Joxemarik, berriz, horma ondotik pala hartutakoan, Larrari begira gelditu zen: kapazoan orain, masa arina ari zen **adorez** iraultzen. Pablo Sastre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adorez betea (4); **adorez beterik** (9); **adorez beteta** (4); **adorez egin** (3); **adorez gainezka** (4)

---

adornatu, adorna(tu), adornatzen du *ad* apaindu, apaingarriz hornitu.

Zenbaitek tunelaren ahora begiratzen zuen graffiti deszifraezinez **adornatutako** trenaren muturra noiz agertuko zen zelatan. Iñaki Zabaleta

---

adornu *iz* apaingarria.

Ferraterrek erromantizismoa arbuiatu zuen hasteko, barre egiten zion batere lotsarik gabe; **adornurik** gabeko poesia soilaren alde egin zuen, sinetsita baitzegoen prosara jotzen denean erabiltzen diren arrazoi berberak ekar daitezkeela poesiara eta egunerokoak sor ditzakeen hitzak eta moduak baliatuz, gainera. Berria - Kultura

Irekia eta xinplea, **adornu** gehiegirik gabekoa, gauzei buelta handirik eman gabe harira joatea gustuko duten horietakoa. Berria - Kultura

Batzuk izenaren jabe dira eta mundu guztiak daki izenak zer dioen, eta besteak, berriz, kultura eta informazioaren gorabeheran gelditzen dira, **adornurako** eta betegarritarako izen putz batzuk besterik ez baitira. Iñaki Segurola

Azkeneko hauek zerbait diotela dirudi, baina belarriak osorik dituena aise jabetzen da **adornu** hutsezkoak direla eta jeneralean gezurretakoak. Iñaki Segurola

---

ados *(ETCn **28.281** agerraldi)* **1** *adlag* konforme, bat etorrita; tanto kopuru berean. ik **akort**.

Zer uste duzu dela zoriontsu bizitzea -esan nuen nik- gizakiarengan dagoen onenarekin **ados** bizitzea ez bada? Imanol Unzurrunzaga

44! **"Ados**, jaunak, **ados**! " Saketik badoa Dongaitz 48ra. Michel Oronoz

Epaiarekin **ados** ez, eta beste askoren ahots, odolak burua hartuta sumindu zitzaion Eleuterio Tapia Joxe Mari Iriondori. Iñigo Aranbarri

Batzuetan **ados**, beste batzuetan ez hainbeste, pixkanaka dèja vu-aren antzeko zerbaiten sentsazioak menderatzen ninduela konturatzen hasi nintzen, gure irakasle ohiak orain Per Abat, Don Juan Manuel edo Lazarillo-az ez diharduen arren. Iban Zaldua

Eta **ados** ni orduan. Edorta Jimenez

Ados geratu dira lehenengo aukeran Zuzendariari burrunba egingo diotela, hau da, masailak puztu eta ezpainekin erlastarren hotsa egin, euren ezadostasuna adieraztearren. Itziar Otegi

El Correo-k aurrenekoa editatu zuen; Berria-k, irizpidearekin **ados**, eta gainera "Frantzian ere saltzen delako", bigarrena. Iñigo Aranbarri

Haren begien aurrean, bai lagun koadrilakoek bai Manuelek berak **ados** ziruditen baieztapen harekin. Pedro Alberdi

Gorputza eta izpiritua **ados**, dualismo izpirik gabe, aitzinatzen naiz. Piarres Aintziart

Izan ere, dena ez da beltza edo zuria izaten, eta Don Bucleri aspaldi aditu edo irakurri nion gauza batekin oso bat edo **ados** sentitu izan naiz beti, eta honako esaldi hauxe da, hain juxtu, berak erdaraz bota bazuen ere: "batzuei kontzientzia nazionala falta zaie; nik sobran daukat". Iñaki Segurola

Ez ukatu elkarri zor diozuena, elkarrekin **ados** eta aldi labur baterako ez bada, otoitzean ari izateko. Eta gero, elkartu berriro, grinari eutsi ezinik, Satanasek tenta ez zaitzaten. Elizen arteko biblia

Aljeriako gerlan izan naiz artetan doi bat uros, nihaurekin **ados** bezala. Piarres Aintziart

• **2** *interj* iritzian bat etortzea adierazten duen hitza.

-Ados, zuk diozuna, Um Hamida. Patxi Zubizarreta

Ados, dena ez da negatiboa - historian ezer ez da izaten dena negatiboa (ezta faxismoa ere). Joxe Azurmendi

Tito etortzen denean, Tito esaten diozue, ezta?, esaiozue komisarian azaltzeko, galdera batzuk egin behar dizkiogula eta, **ados**? - bukatu zuen eta, buelta erdia emanda, eskaileretan behera joan ziren. Jon Maia

Bero itzela eta turista andana, **ados**, baina niri bost. Iban Zaldua

Ados? Juan Kruz Igerabide

Ados? -altxatu egin zen eta oinetik tira egin zidan -. Mirentxu Larrañaga

Ados, gurean jokatuko diagu orduan... baina garagardoa hire kontu. Xabier Paya

Ados. Harkaitz Cano

-Ados -onartu zuen Darling jaunak. Julen Gabiria

-Ados -erantzun zidan saguak-, baina, behar duenean, jaso ere jasotzen ditu haien trukuak. Patxi Ezkiaga

- Bihar itzuliko gara, **ados**? Alberto Barandiaren

Izeba bat izeba txikia ez izateko arrazoirik ez zagok, **ados**; baina izeba batek, izan txikia edo izan handia, bere ilobari osaba deitzea, hori ez diat ulertzen. Antton Olano

-Ados! - esan zuen Lenehanek. Irene Aldasoro

Eta teorian ez luke inor egon behar, **ados**? Zer esan nahi du horrek? Ba, zortzi garela eta ez dela erraza izango, baina gu ez garela hemen egongo. Fernando Morillo

Ados! Hola nintzen atera bakartasun tokitik bi urte eta hilabete bat eta erdiren buruan, hogoita bost hilabete eta erdiren buruan... Filipe Bidart

Bale, **ados**, izan gaitezen zentzudunak, behin arazo bat izan genuen neskatxa penabako batekin eta ia kiskali zigun haurra bainuontzian, baina, ze demontre, horrek ez du esan nahi etorriko zaizkigun guztiak berdinak izango direnik. Patxi Iturritegi

3 ***ados agertu/egon/etorri/izan*** bat agertu, egon, etorri, izan. ik **konforme**.

Pentsa nezala esan zidaten; **ados** banintzen abisatzeko Herrerako zuzendariari (Jesus Rey Requillo). Jokin Urain

-Egongo ez zarete bada apaizekin **ados**, zuek? Josu Zabaleta

Ez da asko, baina horretan denak daude **ados**, baita kalerantz ematen duen gelarik ez duena ere. Joxemari Urteaga

Zergatik ni neu ere, karlistekin **ados** izanik, ez haiengana bilduko? Txillardegi

Nirekin bestela ere **ados** daudenen alde egitea fideltasun kontua da, eta beharrezkoa da hori. Joxerra Garzia

Baina Amy ez zen **ados**. Xabier Olarra

Gure ama **ados** egoten zen normalean ederki kostatako lira irabazteko bidea ematen ziotenekin, eta nire anaia gizagaixoari ez zizkion ama zen aldetik egin beharko zizkiokeen errietak egiten. Pello Lizarralde

Txoko Bozekin **ados** zen. Itxaro Borda

Gure taldean, bakterioen analisi genetikoan espezializaturik baikeunden, guztiak ere **ados** ziren jauzi egin eta sagu-enbrioia ikertzeko. Juan Garzia

Ados naiz bitxikeria dela, baina niri ez zait hain harrigarria iruditzen. Xabier Olarra

Ados gentozen Madame Beyle eta biok: Anjel Lertxundi

Ados egon ginen. Bernardo Atxaga

Eta irten nintzenean, nahiz eta inguratzen ninduen gizartearekin batere **ados** ez egon, hala ere ez nian oso garbi ikusten armak berriro hartzeko prest ote nengoen. Mikel Hernandez Abaitua

Denak **ados** bazarete, bistan dena. Eneko Bidegain

Denbora joan ahala, Hurtadok garbi ikusten zuen nola ari zen urruntzen, zaletasunetan eta ideietan, bere adiskide Sañudorengandik, lehen, gaztetxotan, hain **ados** izanagatik. Josu Zabaleta

Ados ez dagoenak utz dezala ontzia arratoiek bezala. Anjel Lertxundi

Baina zientzialari guztiak ez zeuden oso **ados** burezur malapartatu harekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aitak batzuetan bere modura egiten zituen gauzak, eta nahiz eta ni **ados** ez egon, isildu egiten nintzen. Lander Garro

Artzapezpikuak izendaturiko Batzorde inkisitorialaren epaiarekin **ados** ez zegoelarik, Meister Eckhartek zuzenean eta pertsonalki Avignongo aitasantuarengana jo zuen. Joan Mari Lekuona

Horiek entzunda ere **ados** ez badator, esaion berak har dezan erabakia onartzeko prest nagoela. Juan Kruz Igerabide

Are gutxiago nago El Diario Vascorekin **ados**. Joxerra Garzia

Ez nago **ados** zurekin. Karlos Linazasoro

Eta baita ere **ados** gaude gizakiagan beragan (edo bere fakultate batean, baina ez beste nonbaiten) aurkitzen dela eginkizunen argibidea; gizakia bera dela moralaren iturri. Jenaro Garate

Ados zaudela? Jon Arretxe

Lan garrantzitsua zen oso, **ados** ziren denak horretan: oker berdindutako zangetatik hezetasuna sartu, ura irazi eta sabaia bertan behera amil zitekeen. Harkaitz Cano

Eta zu **ados** zeunden? Pablo Sastre

-Aitatxi **ados** zen ene hautuarekin. Daniel Landart

Seta hori hartua zeukan, hankapean ikusi nahi zituen Euzkadi galtzen utzia zuten aliatuen hiriburu guztiak eta, esan diat, anitz euskaldun ginen **ados**. Koldo Izagirre

Askotan ez naiz gauzekin **ados** egoten eta esan beharra izaten dut. Ana Urkiza

Ni **ados** nago masturbazioarekin, norberaren buruarekin gozatzeko modu bat da. Luis Elberdin

Erabat **ados** nago zurekin. Iñaki Mendiguren

-Ados zaude? Ander Irizar

-Ados nago, bai - esan zuen Harryk, eta ezusteko hargatik Roni liburuak erori zitzaizkion lurrera. Iñaki Mendiguren

Esan gabe doa Robert M. Solowen esanarekin erabat **ados** gaudela, ez dugu inolako zalantzarik lehentasunak zehazteko unean, baina atzera azpimarratuko dugu "tandem" ideia "garapen iraunkor" binomioari dagokionez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ados gara horretan. Xabier Olarra

-Bai, **ados** nago. Joxean Sagaztizabal

Aurreko ideiari dagokionez, ez zuela ulertzen aitortu zuen; eta horretan **ados** nengoen berarekin, zeren, paperean argia izanik ere, guztiz ulertu ezinezkoa bihurtzen baitzen, eta baita zentzugabea ere, osinaren trumoi haren pean. Koro Navarro

Gauza guztiek behar dute neurri bat, eta lo egitea, esate batera, ezinbestekoa da gizakiontzat... nahiz eta zu **ados** egon ez. Unai Iturriaga

Ados gaude, berebat, legeek oinordeko izateko aukera edo modua ezar dezaketen horretan. Andres Urrutia

Eta Concha Valdesek baietz, **ados** dagoela esan, eta aurrera. Edorta Jimenez

Ados ez bazinen ere, begirunez hartu zenion sasira jotzeko erabakia. Xabier Montoia

-Zuk esan duzun bezala - **ados** agertu zen Heinrich, irriz eta mahai gainean balantzaka. Fernando Rey

Biok dakigu beti ez garela **ados** egon izan geure usteetan eta aurrerantzean ere edukiko ditugula geureak eta bi, baina hemendik aitzina neu izango naiz zure periskopioa, neure begiak izango dira zeureak. Hasier Etxeberria

Bakarrizketaren bukaeran berriz, erabat **ados** zaudela esan. Harkaitz Cano

Bera ere **ados** egongo da nirekin, ondo etorriak izango zaretela gure ibarrean geratzeko asmoz bazaudete. Joanes Urkixo

Ongi, **ados** gaudenez, esango dizut zertan den zure aukera hori. Javi Cillero

Aitatxi eta haren gurasoak **ados** ziren: kito ene adiskide eta anaitakoaren ikasbidea. Aingeru Epaltza

Ondorioz, bi legeen mende jartzearen ordaina heriotza izango da, dramarik gabeko heriotza, zeren justua den gizakia bere buruarekin **ados** baitago. Askoren artean

Teoria hauen arabera, pertzepzio sistemak egiazko pertzeptuak sortzen ditu, inguruko munduaren errealitatearekin **ados** datozen pertzeptuak alegia, aldagaiak zenbait arauren arabera konbinatuz gero aurretiazko iragarpenak egiteko aukera ematen dutenak. Josu Zabaleta

Nolanahi ere gustora hartuko zuen Lily berarekin **ados** etortzea Ramsay jauna "zuri samarra" zela esatean. Anton Garikano

Ihizia, mundu hori, **ados** zira? Menane Oxandabaratz

Eta Xazaman **ados** agertu baitzen, biek elkar hartu, eta munduan barrena abiatu ziren. Patxi Zubizarreta

4 *ados gelditu*

Partida hau 17na **ados gelditu** zen joan den igandean, euriaren gatik, eta beraz, zero-zero berriz hasiko dira igandean. Herria

Hara, bai, zureekin **ados gelditzeko** ez duzu kondenatu, eta salbai errea ez zarela besteei erakusteko mihi puntaz deitoratzen duzu. Itxaro Borda

5 *ados jarri*

Aurrena, **ados jarri** beharko genuen taldean, ez baitzitzaigun bururatuko bakarka jardutea gai horretan. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta lehenbailehen **ados jarri** behar zutela gehitu zuen, erorikoa gertatzen zenean prest egon nahi bazuten. Karlos Zabala

Espaloian, katedralaren aurrean, oso ozenki hitz egin zuten itzultzeko hartu behar zuten bideaz **ados jarri** ezinik. Joseba Urteaga

Eta biek ala biek, lehendik **ados jartzeke**, ondorio honetara iritsi dira: lana argitaratzeak kalte handia egingo dio komunismoari, alegia sobietar botereari, sobietar herriari". Felipe Juaristi

Orduan bai: **ados jarri** ziren guztiak. Luis Elberdin

Hoteletik oso hurbil geunden, baina, **ados jarri** gabe, square bati itzulia emanez bidea luzatu genuen. Ramon Saizarbitoria

Batasunak Ibarretxeren Planaren hitzaurrean jasotako hiru zutabeen gainean **ados jartzeko** eginiko eskaintza "logikoa» dela esan zuen Begoña Errazti EAko presidenteak atzo Iruñean. Berria - Euskal Herria

Londresen herenegun gauean bildu ziren AEBetako, Erresuma Batuko, Errusiako, Frantziako eta Txinako atzerri ministroak **ados jarri** ziren Teheranekiko auzia Segurtasun Kontseilura eraman beharraz. Berria - Mundua

Eta Mikel, berarekin **ados jarri** ondoren lanean txoriak hegan baino azkarrago hasi zela pentsatu zuen. Aitor Arana

Utzi zuen Mariok Genoako lana, Adrianorekin **ados jarri**, eta Olivettin hartu zuten. Fernando Rey

Hizketa eta eztabaida franko izan zen, baina erabaki bat hartzeko ez ziren **ados jartzen**. Koro Navarro

Ezertan ez gintuan - ez huen, noski, hori ahaztuko - **ados jartzen**; gure adiskidetasunaren euskarririk onena hori izan dela pentsatu izan diat geroztik. Jon Muñoz

Denbora zeraman orubeak horrela, bertan ezer eraiki gabe: jabeak ez ziren nonbait **ados jartzen**, herentzia-gorabeheraren batengatik. Anjel Lertxundi

Ondo gogoan zuen Pelloren odolberotasunak Erramun eta bera ere **ados jarri** zitueneko eguna. Joxemari Urteaga

Ezin dira **ados jarri**, bakoitza bere bidetik baitoa. Askoren artean

Tratuan ibiltzearen bortxaz, **ados jarri** ginen bigarren musu baterako; eta musu hori hartua izanen zela erran genuen. Jon Muñoz

Onena duzu aseguru-etxearekin **ados jarri** eta berria erostea, orduan auto bat izango duzu berriro. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ados agertu (48); **ados agertu zen** (16); **ados agertu ziren** (8); **ados al** (21); **ados al zaude** (20); **ados azaldu** (5); **ados bagaude** (5); **ados beren** (5); **ados beren artean** (5); **ados da** (9); **ados dago** (28); **ados dagoela** (16); **ados dagoela esan** (7); **ados dagoen** (7); **ados daude** (52); **ados daudela** (11); **ados dauden** (11); **ados dira** (38); **ados diren** (5); **ados egin** (16); **ados eginda** (13); **ados egon** (80); **ados egon arren** (8); **ados egon behar** (9); **ados egon edo** (5); **ados egon ez** (8); **ados egon gaitezke** (5); **ados egongo** (22); **ados egotea** (10); **ados egoten** (5); **ados eta** (30); **ados etorri** (15); **ados etorri ziren** (6); **ados ez** (138); **ados ez badaude** (5); **ados ez dagoela** (12); **ados ez daudela** (6); **ados ez dauden** (11); **ados ez daudenak** (7); **ados ez egon** (14); **ados ez zegoelako** (5); **ados gara** (6); **ados gaude** (43); **ados geunden** (9); **ados horrekin** (9); **ados izan** (12); **ados izanen** (6); **ados izanez** (6); **ados izanik** (8); **ados jar** (6); **ados jarri** (207); **ados jarri behar** (17); **ados jarri beharko** (10); **ados jarri dira** (21); **ados jarri eta** (11); **ados jarri ez** (13); **ados jarri ginen** (7); **ados jarri ziren** (19); **ados jarriko** (14); **ados jarrita** (20); **ados jarriz** (7); **ados jarriz gero** (6); **ados jartze** (5); **ados jartzea** (52); **ados jartzea lortu** (6); **ados jartzeko** (48); **ados jartzeko gai** (6); **ados jartzen** (68); **ados jartzen ez** (5); **ados jartzerik** (10); **ados nago** (67); **ados naiz** (8); **ados nengoen** (7); **ados nintzela** (5); **ados niz** (6); **ados ote** (5); **ados teatro** (5); **ados teatroa** (6); **ados zaude** (25); **ados zaudete** (7); **ados zegoela** (10); **ados zegoen** (7); **ados zela** (5); **ados zen** (5); **ados zeudela** (7); **ados zeuden** (10); **ados zira** (8); **ados ziren** (36); **ados ziren oraino** (6)

aldeak ados (15); **aldeak ados jarri** (5); **alderdiak ados** (9); **alderdiak ados jarri** (5); **arras ados** (7); **arrunt ados** (6); **artean ados** (17); **artean ados jarri** (7); **badira ados** (6); **baina ados** (7); **baitira ados** (6); **batean ados** (11); **batekin ados** (6); **batere ados** (44); **batzuekin ados** (5); **bera ados** (6); **berarekin ados** (6); **beti ados** (13); **bi aldeak ados** (15); **biak ados** (11); **biok ados** (5); **buruarekin ados** (5); **da ados** (13); **dago ados** (46); **dagoela ados** (10); **daude ados** (43); **daudela ados** (9); **denak ados** (64); **denak ados dira** (6); **denok ados** (11); **dira ados** (59); **dira ados jarri** (17); **dira ados jartzen** (22); **dira batere ados** (8); **dira denak ados** (9); **direla ados** (11); **du ados** (6); **elkarrekin ados** (13); **elkarren artean ados** (5); **erabakiarekin ados** (6); **erabat ados** (35); **erabat ados nago** (5); **ere ados** (46); **ere ados agertu** (5); **eta ados** (43); **eta ados jarri** (6); **etan ados** (18); **ez ados** (14); **ez badira ados** (5); **ez baitira ados** (6); **ez da ados** (8); **ez dago ados** (43); **ez dagoela ados** (10); **ez daude ados** (39); **ez daudela ados** (8); **ez dira ados** (52); **ez direla ados** (10); **ez gaude ados** (12); **ez gaudela ados** (6); **ez nago ados** (45); **ez zegoela ados** (7); **ez zegoen ados** (15); **ez zen ados** (7); **ez zeuden ados** (7); **ez ziren ados** (27); **gainean ados** (7); **gara ados** (6); **gaude ados** (16); **gaudela ados** (6); **gehienak ados** (9); **ginen ados** (5); **guztiak ados** (28); **guztiak ados daude** (6); **guztiz ados** (16); **haatik denak ados** (7); **haiekin ados** (5); **hain ados** (7); **harekin ados** (8); **hautetsiak ados** (19); **hautetsiak ados dira** (17); **horrekin ados** (36); **horretan ados** (20); **inguruan ados** (19); **inguruan ados jartzea** (6); **inguruan ados jartzeko** (6); **jarrerarekin ados** (5); **legearekin ados** (8); **nago ados** (45); **nahiko ados** (6); **ni ados** (11); **ni ados nago** (5); **nirekin ados** (6); **oso ados** (9); **planarekin ados** (6); **politikarekin ados** (5); **proposamenarekin ados** (9); **tan ados** (20); **tan ados eta** (5); **tan ados ziren** (5); **zegoela ados** (7); **zegoen ados** (15); **zen ados** (9); **zeuden ados** (9); **ziren ados** (28); **ziren ados jarri** (20)

---

adosatu **1** *izond* etxeez mintzatuz, elkarren ondoan daudenak.

Balizko euskal estatu independentea izan liteke aitaren etxea, edo Ibarretxek proposatzen duen etxe **adosatua**, edo autonomia soilezko txabola. bizimodu mota horrek izaeran ondorioak izango dituela onartzen badugu, ezin gerta liteke eraginik gabea etxekonekoak izatea, gaur egungo binakako etxe **adosatuen** aitzindari zuzen eta jatorra, teilatupe berean eta gainerako mundutik urrun beste familia bat bizitzea, aldi berean arrotz eta ezin hurbilago. Joxerra Garzia

2 (izen gisa) etxe adosatua.

Aitak aipatu didanez, gorriak ikusi dituzte **adosatuentzako** erosleak topatzeko, eta orain arte gutxienez bost familiak utzi dute etxebizitza erosi berria. Iban Zaldua

---

adosean *adlag* ados.

Lehen egunean, **adosean** gelditu dira, bakoitzak partida bat irabazirik. Herria

BO eta Wasps bi taldeak **adosean** geldituz larunbatean Miarritzek baluke berdin finala laurdenetan artzeko eskua bainan orduan kontrarioaren etxerat joan behar... Herria

Berrikitan 70 urte bete dituenak **adosean** utziko ditu behar bada, bera aurkeztuz. Herria

Alemanianelgarrekin mintzatze bat egin dute, biak **adosean** ezarri dituzten bozez geroztik Gerhard Schröder kantzillerak eta hunen kontrario berdindu eta pasatu ere duen Angela Merkel girixtino demokrata andereak. Herria

Al Qaidaren azken balentriak gogoan, beren xedea zuten elgarrekilako erabaki eta bide batzuen hautatzea elgarrekin **adosean**, holako behar haundiak sendi izanez alabainan. Herria

Ezin trenkatuzko auzitik jalgitzeko eta, **adosean** ere ez baitzuten uzten ahal partida, erabaki zuten borrokaren irabazleak izanen zuela arrazoi, irabazlearen erlijioa zela egiazkoa. Piarres Aintziart

---

adosgaitz *izond* bat etortzen oso zaila.

Gu animaliok eta gu landareok, eta gu giza espezie hau, gure lau mila milioi iritzi **adosgaitzekin**, milaurte luzeetako gure historiarekin, gure gerra eta lotsa eta nobletasun eta urguiluarekin. Juan Garzia

---

adosgarri *izond* bat etor daitekeena.

Publizitate-sortzaileen lana, hain zuzen, zenbat eta nolako kodeak erabiltzen diren, era bateko edo besteko estrategiez baliatuz irakurri ahal izango diren irudiak sortzea da, eta estrategia horiek elkarrekin **adosgarri** egitea. Josu Zabaleta

---

adostarzun ik **adostasun**.

---

adostasun *(ETCn **19.043** agerraldi; orobat **adostarzun** g.er.)* **1** *iz* ados etortzea edo egotea.

Nire sudurrek **adostasuna** adierazteko soinu bat atera zuten. Aingeru Epaltza

Filosofian, ez dago **adostasunik**, ez frogarik, ez filosofo guztiek onartutako egia orokorrik". Jon Muñoz

Amor eman gabe, egoskor, bakoitzak geureari eusten geni-on, baina aldi berean, **adostasunerako** bideak eraikitzen ahalegindu izan gara. Andoni Egaña

Adimenaren legeekin **adostasunak**, ordea, egia ororen alde formala osatzen du. Ibon Uribarri

Nire sudurrek **adostasuna** adierazteko soinu bat atera zuten. Aingeru Epaltza

Tokia aukeratzeak ez zekarren berekin **adostasuna** besapean: bietako batek amore eman behar zuen gauzak ongi joan eta konponduko baziren. Pello Zabala

Inoiz, frogak ere ematen dira, eta ez da zaila izaten jendearen **adostasuna** biltzea ikerketa aurrera erematen laguntzeko. Irene Aldasoro

-Bai; adimen guztien gauza batekiko **adostasuna** da egia deitzen duguna. Josu Zabaleta

Agenda-21ek mundu mailako **adostasuna** eta konpromiso politikoa islatzen du, garapenari eta ingurumenari buruzko arazo globalen konponbiderako lankidetzaren inguruan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Tenienteak, nire **adostasuna** bezain laster, hitzordu eman zidan geltokian biharamunerako. Juan Garzia

Historia berau idazteko ahalmena dutenen **adostasunaren** produktua da. Jon Alonso

2 (izenlagun eta izenondoekin)

Nor bere aldetik, berdintsu zeramaten biek egoera latz hura, halako **adostasun** ezkutuko batengatik edo. Karlos Zabala

Pink Floydek lortu du **adostasun** handiagoa, baina psikodelia gozo horren eraginpean logurak kuzkurtuta geratu dira gehienak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zen ama-alaben artean elkar hartze agerikorik izan, ez zen **adostasun** agerikorik izan, baina, nahiz eta etxeko jendea aferari buruz hitz egiten hasirik egon, Mooney andrea ez zen sartu. Irene Aldasoro

Horretarako, funtsezkoa izan omen da oinarrizko **adostasun** bat: denak daude prest pixa eserita egiteko. Iñaki Iñurrieta

Adostasun puntuak badira, hala ere. Edurne Elizondo

Edonola ere, prosodiaren erabilera dena delarik, hiztunaren eta entzulearen arteko gutxieneko **adostasuna** behar da. Lourdes Oñederra

Agian aurrerapen dialektikoak eta solaskideen arteko **adostasun** idealak abiarazten dituzten mugimenduek ez dute garrantzi handirik. Markos Zapiain

- Eztabaidaren kultura eta jarrera desberdinen garapena: **adostasun** umotu eta landua, gehiengo-gutxiengo jokoaren gainetik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gustura esango nuke argazkiaren eta jeinuaren arteko **adostasun** misteriozko bat dela. Josu Zabaleta

Bada, noski, bata bestearekin gogorregia ez izateko isileko **adostasun** moduko batera iristea, eta hori esperoko nuen nik: nik mezua neurtzen banuen, gauza bera egingo zuela hark ere. Ramon Saizarbitoria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berari ez zitzaion hain argi, baina ez zuen **adostasun** faltarik adierazi. Jon Alonso

Taldekoen arteko elkarrizketek txantxa-kutsu arin bat zuten, ozta-ozta eteten zena garrantzirik gabeko gora-behera edo komentario oldarkor batengatik, nahiz eta berehala menderatzen genuen **adostasun**-nahi batek bultzaturik. Joseba Urteaga

Gero tratua itxi genuen, bulego nagusira deitu genuen **adostasun** eske, eta lau eta erdiak aldera han joan zen gizona. Xabier Olarra

Gogoeta hauek metafisikoegiak iruditzen zaizkio legeak delitukideei ahalik eta **adostasun**-arrazoi gutxien eskaini behar diela pentsatzen jarri ez denari. Juan Martin Elexpuru

Adostasun eza, liskarra, hustea. Joxan Elosegi

Ez daki tutik ere zer esaten ari ote den, baina lantzean behin etenak egiten ditu eta entzuleen **adostasun**-marmarrak entzuten dira; haien artean, zahar eta gazte, gogobetetasun isil bat sumatzen da. Oskar Arana

4 ***adostasun neurri*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***12*** *agerraldi)*

Estatistikan, **adostasun neurriak** balorazio metodo edo epaile ezberdinen arteko adostasuna neurtzeko erabiltzen dira, hainbat elementu edo objekturi buruz emandako balorazioei buruz. ETC-entziklopedia

Justua eta injustua denari buruzko **adostasun neurriren** bat egon ezean, zailago izanen zaie norbanakoei, argi dago, euren proiektuak eraginkorki koordinatzea, denentzat onuragarriak diren akordioak iraun dirautela segurtatzeko. ETC-literatura, saiakera

Guk langileak deskribatzeko neurriak bilatzen ditugunez, **adostasun neurri** hauek ez dira zuzenenan aplikagarriak. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***adostasun sexualeko adin*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***8*** *agerraldi)*

Greziar legediari dagokionez, aipagarria da honako xehetasun hau: **adostasun sexualeko adina** 15 urtekoa den arren, badu xedapen zehatz bat harreman homosexualen kasurako, zeinetan esaten duen gizonen arteko harremanetan adostasunerako adina 17 urtekoa izango dela. ETC-entziklopedia

6 ***adostasun zientifiko*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***23*** *agerraldi)*

Adostasun zientifiko handia dago euria gehitu egingo dela latitude handietan, 40 gradutik gora; hortik behera, prezipitazioak gutxitu egingo dira. ETC-prentsa

Literaturaren inguruko nazioarteko **adostasun zientifikoari** kasurik egin barik, Euskal Olerki-Antologia titulupean argitaratu dute euskal literatura eta gaztelaniazko literatura biltzen dituen liburu hau, itxura bikainekoa. ETC-prentsa

Kontuan izanda biziaren hasierari buruzko **adostasun zientifikorik** ez dagoela, askatasunerako eta intimitaterako eskubideek epeen sistema babes dezakete 1978eko Konstituzioaren barruan". ETC-prentsa

Mitt Romney hautagai errepublikarrak adierazi du ez dagoela **adostasun zientifikorik**, beraz eztabaida eta ikerketa gehiago egitea sustatu beharko genuke; baina ekintzarik ez, problemak okerrera egiteko ez baldin bada behintzat. ETC-prentsa

Biologikoki jende arrazarik ez dela errateko **adostasun zientifikoa** izan arren, kategorizazio sozial hori hor dago eta arrazatuek pairatu behar izaten dute. ETC-prentsa

Adostasun zientifiko ia unibertsala duten baieztapen sendoak ez dira berehala bereizten alderdikeriaz jokatzen duten gutxiengo ezdeusen ikuspuntuetatik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adostasun zientifikoaren arabera, lokomozio-aparatuko eta bizkarreko gaitzetarako gainerako eskuzko teknikak bezain eraginkorra dela onartua dago. ETC-entziklopedia

Giza jarduerak eta berotze globala lotzen dituen **adostasun zientifikoa** dago, industriak sorturiko karbono dioxido emisioen erruz. ETC-entziklopedia

Oraindik ez dago **adostasun zientifikorik** objektuaren iraunkortasunaren ulermena giza garapenean noiz sortzen den ezartzeko. ETC-entziklopedia

Historikoki, beren interesak sustatzeko kanpainak egin dituzten taldeak egon dira, **adostasun zientifikoari** desafio eginez, eta politika publikoak manipulatzeko ahaleginean. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adostasun bat (15); **adostasun bat lortu** (5); **adostasun batera** (25); **adostasun batera iristeko** (7); **adostasun batera iritsi** (5); **adostasun berri** (4); **adostasun eta** (13); **adostasun eza** (4); **adostasun falta** (4); **adostasun guneak** (4); **adostasun handiagoa** (8); **adostasun handiena** (16); **adostasun handiena lortu** (4); **adostasun handiena lortzeko** (4); **adostasun handienarekin** (6); **adostasun hori** (14); **adostasun horren** (4); **adostasun horretatik** (5); **adostasun maila** (7); **adostasun orokorra** (5); **adostasun osoa** (6); **adostasun politiko** (6); **adostasun politiko eta** (4); **adostasun politikoa** (10); **adostasun politikoaren** (4); **adostasun puntu** (6); **adostasun puntuak** (15); **adostasun sozial** (7); **adostasun sozial eta** (6); **adostasun zabal** (6); **adostasun zabala** (15); **adostasun zabala lortzea** (4); **adostasun zabalagoa** (7); **adostasun zabalak** (4); **adostasun zabalena** (6); **adostasuna agertu** (6); **adostasuna agertu zuten** (4); **adostasuna behar** (9); **adostasuna beharko** (5); **adostasuna bilatu** (10); **adostasuna bilatzea** (6); **adostasuna bilatzeko** (15); **adostasuna bilatzen** (6); **adostasuna da** (4); **adostasuna dago** (11); **adostasuna egon** (9); **adostasuna erabatekoa** (6); **adostasuna erakutsi** (4); **adostasuna erdietsi** (5); **adostasuna ere** (6); **adostasuna eta** (19); **adostasuna izango** (4); **adostasuna lor** (4); **adostasuna lortu** (47); **adostasuna lortu dute** (5); **adostasuna lortu nahi** (5); **adostasuna lortu zuten** (5); **adostasuna lortuko** (5); **adostasuna lortuz** (6); **adostasuna lortuz gero** (4); **adostasuna lortzea** (43); **adostasuna lortzea da** (6); **adostasuna lortzeko** (41); **adostasuna lortzeko aukera** (5); **adostasuna lortzen** (12); **adostasunak eta** (6); **adostasunak izan** (4); **adostasunak lortzea** (7); **adostasunak lortzeko** (11); **adostasunaren bidez** (6); **adostasunaren bitartez** (4); **adostasunaren eta** (5); **adostasunera heldu** (4); **adostasunera iristeko** (9); **adostasunera iritsi** (6); **adostasunetara iristeko** (4); **adostasunik erdietsi** (5); **adostasunik ez** (32); **adostasunik ez badago** (4); **adostasunik ez dago** (4); **adostasunik eza** (5); **adostasunik gabe** (19); **adostasunik handiena** (4); **adostasunik izan** (4); **adostasunik lortu** (24); **adostasunik lortu ez** (5); **adostasunik lortu ezean** (4); **ahalik eta adostasun** (23); **aldeen arteko adostasuna** (5); **alderdi guztien adostasuna** (6); **alderdien arteko adostasuna** (4); **artean adostasun** (13); **artean adostasuna** (10); **arteko adostasun** (24); **arteko adostasuna** (49); **arteko adostasuna bilatu** (5); **arteko adostasuna lortzea** (8); **arteko adostasunak** (5); **arteko adostasunez** (6); **baino adostasun** (5); **bere adostasuna** (8); **buruzko adostasuna** (18); **da adostasuna** (4); **dago adostasunik** (6); **den adostasuna** (4); **denon arteko adostasuna** (4); **dira adostasuna** (4); **diren adostasun** (4); **du adostasuna** (4); **duen adostasuna** (6); **dugu adostasuna** (4); **erabateko adostasuna** (12); **erabateko adostasunik** (7); **erabateko adostasunik ez** (4); **ere adostasuna** (6); **eta adostasun** (53); **eta adostasun handiena** (11); **eta adostasuna** (31); **eta adostasunak** (13); **eta adostasunaren** (12); **eta adostasunerako** (5); **eta adostasunik** (5); **ez adostasuna** (5); **ez dago adostasunik** (6); **gutxieneko adostasun** (6); **gutxieneko adostasuna** (6); **guztien adostasuna** (15); **guztien adostasuna lortu** (4); **guztien arteko adostasuna** (6); **inguruan adostasun** (7); **inguruan adostasuna** (12); **inguruko adostasuna** (18); **inguruko adostasuna lortzea** (4); **izan da adostasuna** (4); **lortutako adostasuna** (6); **nire adostasuna** (4); **nolabaiteko adostasuna** (4); **oinarrizko adostasun** (6); **oinarrizko adostasuna** (10); **zen adostasunik** (4); **zuen adostasuna** (5)

---

adoste **1** *iz* bat etortzea.

Iraken etorkizunaz eztabaidatzeko, Sharm-el-Sheikhen (Egipto) atzotik bilduta dagoen nazioarteko konferentziak gerraren alde eta aurka zirenen artean **adoste** bat hitzartzea du helburu. Berria - Mundua

Urte mordo batean erresistentzian egon gara, 98an egon ginen adierazpen erreibindikazioan, eta, orain, errebindikaziotik haratago metodo bat **adoste** bidean gaude, herri honek bere hitza eta erabakia espresa dezan era praktiko batean. Berria - Euskal Herria

"Euskal instituzioetan lanean dabiltzanen artean" hautagai bat **adoste** lanetan dabiltza, Basagoitiren hitzetan, ondoren Mariano Raxoi PPko idazkari nagusiari proposamena egiteko. Berria - Euskal Herria

UGTk berehala erantzun dio ELAri, eta esan sindikatu abertzaleak agerian utzi duela ez dakiela ezer sinatutakoaz eta horren atzetik egon den **adoste** prozesuaz. Berria - Euskal Herria

"Lehen ministroak, orain arteko egutegiari jarraituz, Gazatik erretiratzeko planari eutsiko dio, baita Egiptorekiko **adoste** prozesuari eta segurtasun hesiaren eraikuntzari ere", zehaztu zuen atzo Ariel Sharonen kabineteak. Berria - Mundua

2 pilota jokoan eta kidekoetan, ados egitea.

Gogor doa gudua beste **adoste** batzuetan, 43 tan, 46 tan, 47 tan, 48 tan eta 49 tan. Herria

Zernahi **adoste** egin dute haste hortan, ez hanbat bote, aldi huntan haatik Sorhuetek gehiena, eskuineko murru hartarik dilindan. Herria

Hi bahiz eta ni banuk, beste hiru **adoste**, 44, 45 eta 46 etan, eta horra beste hiruak garaztarrentzat. Herria

Gero sei **adoste** 44 etaraino. Herria

---

adostear *(ETCn **142** agerraldi, horietatik **75** azken sei urteetan) adlag* adosteko zorian.

Eta Zumarragan ere, **adostear** dira Antiguako ermitaren ondoan, betirako, *Respeto*-ri txoko bat egitea. Berria - Kultura

---

adosteke *(ETCn **25** agerraldi, horietatik **13** azken sei urteetan) adlag* adostu gabe.

Ildo horretan, proposamenak egitea beharrezko zela adierazi zuen, "hainbeste izanik **adosteke** dauden gaiak, erraza bailitzateke haietariko batzuetan akordioak lortzea", esan zuen. Berria - Euskal Herria

---

adostezin *izond* ezin adostuzkoa.

Egoera praktiko batean jarrita, miliziano gaztea Sánchez-Mazas-en aurrez aurre, adibidez, bi portaera dira posible, nahiz eta **adostezinak** izan, bakoitzak bere moralitatea baitu. Joseba Zulaika

---

adostu, ados(tu), adosten **1** da/du *ad* bat etorri; bat etorrarazi.

Globalizazioaren analisiak oso argi esplikatzen ditu garraioen kostuaren beheranzko joera eta trukeen liberalizazioa; ikusmolde tradizionalen arabera, aldiz, ez zirudien joera horiek batere **adosten** zirenik nazioarteko zuzeneko inbertsioen garapenarekin. Koro Navarro

Halako batean, garbi-garbi aldatu da eskualde horiek nazioarteko zuzeneko inbertsioen fluxuen osotasunean duten partea, eta munduko fluxuen %37 izatera iritsi da 1997an; kopuru hori hobeto **adosten** da munduko ekoizpenean ekonomia horiek duten pisuarekin. Koro Navarro

Mundua ideia batetik sortua balitz bezala errepresentatu behar da, arrazoimenaren erabilera honekin **adostu** behar badu, h[au] d[da], erabilera moralarekin, hau gabe arrazoimena izateko duintasunik ez genukeela pentsatuko baikenuke, eta beraz, osorik ongi gorenaren ideian funtsatzen den erabilerarekin **adostu** behar du. Ibon Uribarri

Arkitrabeen altuera kolomaren altuerarekin **adostuz** erabaki behar da. Santiago Iruretagoiena

Errealismoaren arazoa: jarrera hauek, puntu bateraino bederen, elkarrekin ezin **adostuzkoak** dira. Josu Zabaleta

Egia esateko, bi definizio horiek ez dira erabat ezin **adostuzkoak**: [...]. Josu Zabaleta

Merkatu horrek 1960ko hamarraldiaren ondoren izan zuen hazkunde esponentziala ezin **adostu** zen Bretton Woodseko itunen arabera osatutako parekotasun finkoen erregimena mantentzearekin. Koro Navarro

Funtsean, barne-eskaria balantza korrontearen orekarekin **adostuko** zen mailara eramatea eskatzen zuten egokitze-politika horiek. Koro Navarro

Teoria honen arabera, bada halako "lehia" bat bi begien artean, eta laborategian bi begiei elkarrekin **adostu** ezin daitezkeen irudiak erakusten bazaizkie, bietako batek gaina hartuko dio besteari. Josu Zabaleta

Horretarako, ordea, helburuak, handiak eta txikiak, behar dira finkatu, behar dira **adostu**. Hasier Etxeberria

Herri erakundeekin **adosturiko** gaurkotze ikastaroak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Genearen teoria ezin da **adostu** Engels-en araberako Izadiaren Dialektikarekin. Juan Garzia

-Azkartxo **adosten** zarete zuek, jainkogabe horiek, apaizjale liberalekin! -hots egin zuen ozenki On Camillok. Koldo Biguri

· **2** da/du *ad* hitzartu.

Poliziaren arabera, Internetez **adostu** ziren euren buruaz beste egiteko. Berria - Gaiak

Dena argi dagoenean, aditu guztiak pronostikoan **adosten** direnean eta gurasoek baiezkoa ematen dutenean, bizia amaitzeko erabakia hartzen du sendagile taldeak eta eutanasia egiten du. Berria - Gaiak

Joan zen astean itsasoan kutsadura eragiten duten ontzien erantzuleei ezarri beharreko zigorren inguruan **adostu** ziren Europako Batasuneko ministroak. Berria - Gaiak

Gaitz sendaezinak dituzten umeen eta hiletsita daudenen bizia bukatzeko moduan **adostu** ziren orduan. Berria - Gaiak

Togliattiren aurkako atentatuaren ondoko hiruzpalau urte latzen ondoren, demokrata kristauek eta komunistek *entente cordiale* moduko bat **adostu** zuten, eta ateak zabaldu zizkieten garai pragmatikoago batzuei. Anjel Lertxundi

Iragan abuztuaren 16an **adostu** zuten bi herrialde horiek Barentseko Itsasoa Babesteko Plana. Berria - Gaiak

Zuek esan zenbat kobratu nahi duzuen zerbitzuaren truke, eta ondoren ikusiko dugu prezioa **adostu** ahal dugun. Jon Alonso

Hitzarmen bat **adostu** zenuten, ni errudun ez egiteko? Koldo Izagirre

Tratua ixteko baldintza guztiak **adostu** genituenean, pasaportea erakutsi nion jabeari. Anjel Lertxundi

Europar ministroek **adostu** dute, antxoaren arraintza martxoan irekitzea. Herria

Denok dakigu horixe baizik ez dela bidea: ados gaitzakeena **adostu** eta elkarrizketa abiaraztea. Hasier Etxeberria

Areatzan uzten ninduen, Arriagatik hurbil, hurrengo hitzordua noiz eta non **adostu** ondoren. Rafa Egiguren

20 milioi euro inbeztizamendu eskatzen dituen proiektu kozkor hori, BAM, unibertsitatea, Akitania eta Estatuaren artean **adostua** da aspalditik. Herria

Valmont jaunak ez dizula izkiriatu, ez da nire hutsa; ezin izan diot zuri izkiria diezazun otoiztu, zeren ez bainaiz harekin bakarka egon, eta **adostua** baitugu nehoiz ez garela jendaurrean elkarrekin mintzatuko. Jon Muñoz

Dena **adostua** genuen bezala egin genuen; eta bizkondesa oren batak inguruan heldu zen nire gelara. Jon Muñoz

Berari eskutitza idaztea **adostu** dugu azkenean. Jokin Urain

Lehen neurriak aho batez **adostu** zituen kabineteak. Josetxo Azkona

Mintzatu nintzaion alabaina; hari eskerrak emateko ordea, bai orobat zer orenetan eta elkar nola ikusiko genuen harekin batera **adosteko** ere. Jon Muñoz

-Andre on, nik ez dut diru-gosearen biziopean erori nahi; horregatik, **adostutako** prezioa baino gehiago ez dut nahi. Askoren artean

Gabardina luzea soinean, artilezko txanoa eta txapela buruan, eskularruak jantzi eta armak poltsa batean sartu ondoren, **adostutako** lekura jo nuen lehenbailehen. Rafa Egiguren

V. Biltzarrean **adostutako** jarraibide estrategikoak ere hausnartu genituen. Rafa Egiguren

Ostiral egunsentian ikusi nuen azkenekoz: egongelako argia gau osoan piztuta utzi nuen, eta, hutsik egin gabe, han zen biharamunean, enkontru horietarako **adostuta** genuen kafetegian. Iban Zaldua

Adostua zegoenez, ene jabe egina zen, berea nintzen, mende nindukan. Koldo Izagirre

Hango parlamentuak bere gaztigu koda edo legediarekin zituen ainitz traba eta zuzengabekeria besteekin **adostetik** gibelatzen zutenak. Herria

Internetez **adostu** eta euren buruaz beste egin zuten urriaren 11n bederatzi gaztek Japonian. Berria - Gaiak

3 tanto kopuru berean gertatu.

Ttipituz joan da makurra, 22-16, 31-24, bainan zazpi tantoren lerro batekin, horra 31 tan **adostea**, Sorhueten bote zenbait ere besteak beste. Herria

Lehenean berehala jokoan sartu dira azken hauk: Frantxix arras deliberatua eta Etcheto lauretako taulatzale finena azken oren laurdeneraino: 4 etan eta 12 etar **adosturik**, 24-15, 28-20 gaina zuten lakartarrak eta uztariztarrak 7 sakerekin ordukotz. Herria

30 etan **adosturik** gazteak beretu du kurioski ondar hura. Herria

4 (era burutua izenondo gisa)

Ondoren azaltzen du zer esan nahi duen eskubide **adostuak**, eta errepublikak ezin dela justiziarik gabe gobernatu erakusten digu. Imanol Unzurrunzaga

Lehendabiziko elkarrizketa honetan nabarmentzen da lehenik eta era **adostuan** zeinen premiazkoa duen gizakiak Egiaren bilaketa, eta berau eskuratzea zoriontsu izateko ezinbestekoa ote den eztabaidatzen da. Imanol Unzurrunzaga

5 ***adostu ezin*** *iz*

Adostu ezin erabatekoa zegoen aitaren eta semearen artean, guztizkoa; ezin zuten ezertan ere bat etorri. Josu Zabaleta

6 ***txeke adostu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

27 **Txeke adostua**: igortzen denean, libratu den entitateak baieztatzen du hura ordaintzeko nahiko diru badagoela libratu den kontuan. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adostu ahal (11); **adostu ahal izateko** (10); **adostu aurretik** (3); **adostu batean** (4); **adostu behar** (29); **adostu behar da** (4); **adostu behar dira** (3); **adostu behar ditugu** (3); **adostu beharko** (28); **adostu beharko da** (3); **adostu beharko dira** (6); **adostu beharko genuke** (3); **adostu beharra** (3); **adostu beharreko** (9); **adostu bezala** (7); **adostu da** (4); **adostu dira** (12); **adostu ditu** (4); **adostu dituzte** (4); **adostu du** (7); **adostu duen** (3); **adostu dugu** (5); **adostu dute** (38); **adostu duten** (5); **adostu dutena** (3); **adostu egin** (7); **adostu egin behar** (4); **adostu eta** (31); **adostu eta gero** (3); **adostu ezin** (3); **adostu gabe** (8); **adostu genuen** (11); **adostu ginen** (4); **adostu nahi** (7); **adostu nahian** (4); **adostu ondoren** (4); **adostu zela** (6); **adostu zen** (13); **adostu ziren** (36); **adostu zituen** (4); **adostu zituzten** (11); **adostu zuen** (18); **adostu zuen atzo** (7); **adostu zutela** (6); **adostu zuten** (73); **adostu zuten atzo** (6); **adostu zuten bi** (7); **adostuko dira** (5); **adostuko dute** (10); **adostuko dutena** (3); **adosturiko prozedura** (3); **adosturiko prozedura politikoak** (3); **adostutako akordioak** (3); **adostutako eta** (3); **adostutako hitzarmena** (7); **adostutako hitzarmenak** (3); **adostutako ituna** (3); **adostutako moduan** (3); **adostutako testu** (3); **adostutako testua** (5); **adostutako testuak** (4); **akordio bat adostu** (3); **akordioa adostu** (10); **akordioa adostu zuten** (5); **aldeek adostu** (4); **arte adostutako** (3); **artean adostu** (26); **artean adostu behar** (6); **artean adostu beharko** (5); **artean adostuko** (3); **artean adostutako** (13); **aurretik adosturiko** (3); **aurrez adostutako** (3); **bat adostu** (26); **bat adostu zuten** (8); **bat adostuko** (4); **bat adostuko dute** (3); **batean adostu** (12); **batekin adostu** (3); **bi aldeek adostu** (4); **bukatzeko moduan adostu** (3); **dela adostu** (3); **demokratikoak eta adosturiko** (3); **denon artean adostu** (3); **dira adostu** (4); **direla adostu** (3); **egitea adostu** (7); **egitea adostu zuten** (3); **egitean adostu** (3); **egitean adostu ziren** (3); **elkarrekin adostu** (4); **elkarrekin adostutako** (3); **era adostu** (5); **era adostu batean** (4); **eragileek adostutako** (3); **eragileek adostutako moduan** (3); **ere adostu** (7); **eta adostu** (15); **eta adostu beharko** (3); **eta adosturiko** (3); **eta adosturiko prozedura** (3); **eta adostutako** (8); **etan adosturik** (3); **ez dira adostu** (3); **ezer adostu** (6); **ezin adostuzkoak** (3); **formulak adostu** (3); **guztiek adostu** (3); **guztien artean adostu** (5); **guztion artean adostu** (7); **hala adostu** (3); **hitzarmen batean adostu** (3); **hitzarmena adostu** (5); **hitzordu bat adostu** (4); **igoera adostu** (4); **inguruan adostu** (5); **interneten adostuta** (3); **internetez adostu** (3); **ituna adostu** (4); **izatea adostu** (4); **jartzea adostu** (4); **mahaian adostutako** (3); **moduan adostu** (4); **plana adostu** (3); **proposamena adostu** (3); **sindikatuekin adostu** (3); **uztea adostu** (3); **zirela adostu** (3); **zirela adostu zuten** (3); **zuen adostutako** (4)

adostea da (3); **adostea espero** (3); **adostea eta** (5); **adostea proposatu** (3); **adostea zen** (3); **adosteko asmoz** (3); **adosteko aukera** (3); **adosteko eskatu** (3); **adosteko eta** (3); **adosteko prest** (4); **adosteko prest dagoela** (3); **adosten ari** (3); **adosten da** (4); **adosten duen** (5); **adosten ez** (4); **adosten saiatuko** (5); **akordioa adosteko** (3); **artean adostea** (4); **aurkitu eta adosteko** (3); **bat adostea** (8); **bat adosteko** (9); **batean adostea** (4); **batean adosteko** (3); **bateratua adosteko** (3); **batzuk adosten** (3); **eta adostea** (3); **eta adosteko** (9); **hitzarmena adosteko** (8); **ituna adosteko** (3); **jarrera adosteko** (3); **lan hitzarmena adosteko** (3); **lan ituna adosteko** (3)

---

adostugabe *izond* adostu ez dena.

Ez dago **adostugabeagorik**: ttipiaren tristura da zatarkeria. Koldo Izagirre

---

adreilu *(orobat **adarailu** g.er.)* **1** *iz* buztin lurra eguzkitan edo labean egosirik egindako atal prismatikoa, eraikuntzan erabilia.

Harriaren ordez **adreilua** erabili zuten eta kare-orearen ordez bikea. Elizen arteko biblia

Adreilu eta hormigoiez egindako arkitektura baten elementu osagarriak. Santiago Iruretagoiena

XIX. mende amaierako **adreilu** eta burdinazko pabilioi osasunaren kaltekoak. Iban Zaldua

Eraikuntzak **adreilua**, harria eta egurra konbinatzen ditu. Anjel Lertxundi

Bizirik gorde dut memorian **adreilu** haren latza neure azalaren kontra. Iban Zaldua

Zenbait hiritan sarri ikusten dira eraikuntza publikoak bezala etxe partikularrak ere, eta baita jauregiak ere, **adreiluz** egindako hormak dituztenak. Santiago Iruretagoiena

Teilatua zeukaten, baina gainontzean alde guztietatik zabalik zeuden, eta, esan zidatenez, hasiera batean **adreiluak** lehortzeko erabiltzen ziren. Urtzi Urrutikoetxea

Etxe hondakinen artean berriro erabiltzeko moduan geldituriko **adreiluak** bildu eta garbitzea zen haren eguneroko egitekoa. Alberto Ladron Arana

Gazterik hasi zen bere obra literarioa idazten, urratsez urrats, **adreiluz adreilu** eraikitzen den etxea balitz bezala. Jon Alonso

Hezurrek aurpegia zulatzen zioten lekuetan, azalak, tenkaturik, **adreiluaren** gorritasuna zeukan. Karlos Zabala

Ibaiaren bi ertzen gainean egindako **adreiluzko** eraikuntza handia. Agustin Otsoa

Fabrika zahar baten **adreiluzko** horman, hiru metro luzeko letretan idatzita, Jesus hitza ageri zen. Bernardo Atxaga

Airea garbia da, eta begiak paisaia aldakor ugari miretsi ditzake: basoa inguruan eta haraneko baserrietako **adreiluzko** teilatu gorriak. Urtzi Urrutikoetxea

Erdian harri eta **adreiluzko** tximinia gaitza, kanoia dena txirtxilatua, itxura bitxikoa. Koldo Izagirre

Fakultateko ateak aurki itxiko dituzte; ez dabil inor **adreiluzko** korridore hotzetatik. Juan Garzia

Adreiluzko bi espaloi ikaragarri garairen artean sakon zihoan kalezulo xaxtar batean sartu ginen. Juan Garzia

Arkaleren etxea oso handia zen, harrizkoa lehen solairuraino eta gainerakoan **adreiluzkoa**. Koro Navarro

Zorua gorri, **adreiluzkoa** agian, higatua, dexente hondatua. Txillardegi

Txabola horietako asko **adreiluzkoak** dira, eta elektrizitatea eta edateko ura dute. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Garbi dago harlanduak, edo harri gogorrak, edo harlangaitzak, edo **adreilu** erreak nahiz gordinak dauden lekuetan ere, daudenak erabili beharko direla leku bakoitzean. Santiago Iruretagoiena

Trenbide-zainen **adreilu** gorrizko txabola. Anjel Lertxundi

Leherketak arrakala handia eragin zuen eraikinaren aurreko aldean, eta eroritako **adreiluek** azpian hartu zuten ondoan aparkaturik zegoen auto bat. Berria - Euskal Herria

Errekako edo itsasoko harea erabiliz gero, horri erretako **adreilu** birrindu eta bahetua nahasten bazaio hirutik bateko proportzioan, morteroaren kalitatea askoz ere hobea izango da erabiltzeko. Santiago Iruretagoiena

Harresia erretako **adreiluekin** egiteko aukera. Santiago Iruretagoiena

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Besoan zeramatzaten xingolek "Kontseilu Judu" elkarteko kide gisa nabarmendurikoek ziotenez, borondatez edo behartuta, denak eramango gintuzten lehentxeago ala geroxeago **adreilu**-fabrikatik Alemaniara. Urtzi Urrutikoetxea

Gizon txikitxo bat zen, **adreilu** koloreko masail eroriak eta begi irtenak zituena. Koro Navarro

Orduan bata erdizka ireki zitzaion eta Turkiako sedazko galtza **adreilu** kolorekoak ikusi nizkion. Matías Múgica

Ez zaizue lastorik emango, baina **adreilu**-kopuru bera egin beharko duzue. Jose Antonio Mujika

Gainean, erretako **adreilu** -puskekin egindako nukleoa zabalduko da, karea nahastuz hirutik bateko proportzioan, zoladuraren lodiera gutxienez sei hatzekoa izan arte. Santiago Iruretagoiena

Gero teila horiek kare-urez zurituko dira, **adreilu** -hautsezko zarpeatua ez dezaten bota. Santiago Iruretagoiena

Egingo nuke neska hori zure besoetara eroriko dela **adreilu** -tona bat bailitzan. Lopez de Arana

Kaleargi bakarraren argi ahulak zirkulu herdoilduaren erdian jotzen zuen, behin etxe izandako **adreilu** mordo, egur hautsi eta hautsaren gainean, hiri zikineko jende apala eta ezezaguna eta ezin ahaztuzkoa bizi eta maitatu eta hil, eta, beti, galtzaile izan zen leku hartan. Joxan Elosegi

Txato **adreilu** -kamioikada bat deskargatzen ari zela, bera bakarrik. Jon Alonso

4 irud/hed

Ekonomia ez dagoela **"adreiluen** menpe" ziurtatu du Jaurlaritzak. Berria - Ekonomia

Berandu bazen ere, ikatz-**adreiluak** eta arroza ekarrarazi zituen. Juan Kruz Igerabide

Proteina horiek guztiak aminoazidotan apurtzen dira, aminoazidoak baitira proteinak eraikitzeko **adreiluak**. Irene Aldasoro

5 ***adreilu erregogor***

Dartaiet sartu zen hankak berotzeko **adreilu erregogor** batez. Anjel Lertxundi

6 ***adreilu huts*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Beheko zatia harlanduz egina dago, eta goikoa **adreilu hutsez**. ETC-prentsa

Etxeak **adreilu hutsean** eta biolinak margotuta? Ene!. ETC-prentsa

Ondo betetzen da hori, zeren azta-erdiko hormak baitira, luzekako **adreilu hutsezko** pareta batez osatuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konpresioarekiko erresistentzia: adreilu trinkoek edo zulatuek behintzat 98,1 N/cm2 jasan beharko dute, eta **adreilu hutsek**, behintzat, 49 N/cm2. ETC-zientzia, zuzenbidea

Teilatua, orain ganbara bihurtutako aletegiaren gainekoa, kendua, eta haren ordez terraza bat **adreilu hutsezko** petril batekin. ETC-literatura, saiakera

Hobian piezak geruzatan antolatzen ziren: behean adreilu trinkoak eta baldosak, haien gainean **adreilu hutsak**, gain-gainean teilak. ETC-literatura, saiakera

Ktesifon arkua, **adreilu hutsezko** munduko ganga handiena (Sasandar Inperioa, III-VI. mendeak) ETC-entziklopedia

7 ***adreilu trinko***

Adreilu trinkozko putzuzulo batean hormarteratu genuen, hondoan eta alboetan 1.000 watteko lau erresistentzia zeuzkala, elektrika-harietara kontagailua baino goraxeagotik konektatuak. Juan Garzia

8 ***adreilu zulatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Platerek eta alanbike lepoko bonbilek **adreilu zulatuen** mila argi puntuak islatzen zituzten ipurtargien antzera, natura hil izugarri hartan zehar. ETC-literatura, saiakera

Eraikuntzan, **adreilu zulatu** esaten zaio azalera handien duen aldean zuloak dituen adreiluari eta aldi berean zuloen bolumena adreiluaren bolumenaren % 25 eta % 45 bitartekoa denean. ETC-entziklopedia

9 ***bistako adreilu*** *(corpusean ez dago; ETCn **41** agerraldi)*

Bistako adreilua eraikinaren kanpoaldean edo barrualdean estali gabe jartzeko egindako adreilu mota da. [...] **Bistako adreiluen** ezaugarri nagusia, hiru aurpegi bereziki leunak eta bukatuak izatea da; izan ere, behin adreilua jarrita, aurpegi horietako bat gutxienez ikusgai izango da. ETC-entziklopedia

Etxebizitza-bloke bat izango zela espero zuen, ospitale baten antzekoa, ez dorreska hau, jauzi-iturri eta guzti, eta dena **bistako adreiluz** eginiko zutabe biribilekin (kebab-etako erregailuak iruditzen zaizkio). ETC-literatura, saiakera

Jatorrizko pareta horiek birgaitu egin dituzte, eta barrualde osoa eraiki, Bastidak berak erabilitako materialekin, hots, **bistako adreilu** eta hormigoi armatuarekin. ETC-prentsa

Bastidak erabilitako material berberekin, **bistako adreiluarekin** eta hormigoi altzairudunarekin, elkarri lotuta dauden bi eraikin diseinatu ditu Starckek. ETC-prentsa

Herrimin, malenkonia eta emozioak jota ibiltzen naiz kalez kale: alabaina, Iruñean frankismoa erretinan kolatua dugu Victor Eusaren **bistako adreilua** dela medio. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adreilu bat (10); **adreilu batekin** (3); **adreilu eta** (8); **adreilu fabrikako** (4); **adreilu fabrikan** (11); **adreilu gorriko** (4); **adreilu gorriz** (5); **adreilu gorrizko** (6); **adreilu horizko** (3); **adreilu kopuru** (3); **adreilu kopuru bera** (3); **adreilu kopurua** (4); **adreiluak egiteko** (5); **adreiluak eta** (6); **adreiluz eta** (3); **adreiluzko eraikuntza** (3); **adreiluzko etxe** (7); **adreiluzko etxeak** (3); **adreiluzko horma** (9); **adreiluzko korridore** (3); **beste adreilu** (3); **edo adreilu** (3); **erretako adreilu** (3); **eta adreilu** (16); **eta adreiluak** (7); **eta adreiluz** (4); **eta adreiluzko** (7); **zuen adreilu** (4)

---

adreilugintza *iz* adreiluak egitea.

Lan astunetara behartu zituzten, buztingintzan eta **adreilugintzan** bezala, berdin soroko lan guztietan ere. Jose Antonio Mujika

Patek bazuen amorante bat, **adreilugintzako** behargina bera, bere lanaz asperturik zegoena eta Antzezoihal Berdean aritzeko nahikundea zuena. Juan Garzia

Gero, hango jendea irtenarazi eta zerraz, burdinazko pikotxaz eta burdinazko aizkoraz lan egitera behartu zuen, eta **adreilugintzara** eraman. Elizen arteko biblia

Orduan, Egiptoko erregea kontra jarri zitzaion eta, azpikeriaz, **adreilugintza** astunera behartu zuen, makurtarazi eta esklabo bihurtu. Elizen arteko biblia

---

adrenal *(corpusean ez dago; ETCn **148** agerraldi)* **1** *izond* giltzurrunaren inguruan dena, giltzurrunari dagokiona.

Pazienteak hiperaktibitate **adrenaleko** gertakaririk izanez gero, tratamendua bertan behera utzi behar da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, oxitozinak nerbiosistema sinpatikoa eta ardatz hipotalamiko **adrenala** erregulatzeko gaitasuna du, eta ondorioz, estresari lotutako sintomatologia fisikoa eta ondoez emozionala arintzeko gaitasuna ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sortzetiko hiperplasia **adrenala** (SHA) da intersexualtasunaren arrazoi ohikoenetako bat XX haurren kasuan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezabatze **adrenala** gertatzen da prednisona hartzen bada zazpi egun baino gehiagotan. ETC-entziklopedia

Hormona **adrenalen** askapena (adrenalina eta kortisola, batez ere), organismoari ere aipatutako erantzun azkarrerako prestatzen diotenak (energia eta indar muskularra sortzen baitute). ETC-entziklopedia

2 ***guruin adrenal*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Guruin adrenal baten ebakiduran, erraz bereizten dira kortex lodi horia eta guruinaren barneko muin grisa. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 ***kortex adrenal*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

DDDaren eragin fisiologikoa bakarra da, seguruenik, intsektiziden artean; izan ere, adrenalina hormona jariatzen duen guruin adrenalaren parte bat suntsitzen du · **kortex adrenal** esaten zaion azaleko geruzako zelulek osatzen dute, hain zuzen ere, guruin adrenala-. ETC-literatura, saiakera

Entzima honek giltzurrun gaineko guruinean edo guruin adrenalean kokatzen den **Kortex adrenalaren** edo kortex geruzaren atal faszikularrean glukokortikoide eta mineralokortikoideen sintesian parte hartzen du eta, gabeziaren ondorioz, hormona hauen eskasia egongo da. ETC-entziklopedia

4 ***sortzetiko hiperplasia adrenal*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

A **Sortzetiko hiperplasia adrenal** birilizatzailea. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

adrenalina **1** *iz* giltzurrun gaineko guruinei darien hormona, odol zainak estutu eta bihotz taupadak bizkortzen dituena.

Kirola egitean, **adrenalina** bota ondoren, konpensatzeko, endorfinak isurtzen ditugu, halako lasaitasun-sentsazio bat ematen dutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Konpetentziak ematen duen **adrenalina**, egun batzuetako izartxo izatearena. Hasier Etxeberria

Bakardadearen zamak estali zuen **adrenalina** eta, orduan bai, negar egin nuen. Lander Garro

Taupadaren bat, **adrenalina**, urduritasuna, galtzerdiak bailiran korapilatutako begirada kordelak. Harkaitz Cano

Jauzi izugarria egin zidan bihotzak, **adrenalinak** aortaren eta arteria koronarioen artean zirkuitu-labur bat eragin izan balit bezala. Joan Mari Irigoien

Adrenalina zainetan barrena erretzen sentitzen zuen Del Vallek. Alberto Ladron Arana

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lo egotetik **adrenalina** gaindosia izatera igaro nintzen, bat-batean, operazioaren berri irratian entzun nuenean; salto batean altxatu nintzen ohetik, ia goiko paretan itsatsita geratzeraino. Berria - Harian

Adrenalina betekada hartzen duzu. Berria - Kirola

Ez zenuke enkargua bete nahi, behin enkargua beteta, jarraipenak ematen dizun **adrenalina** zartada eta beste baten bizitzaren jagolea izatearen nagusikeria amaitu egingo liratekeelako. Sonia Gonzalez

Adrenalina beherakadak nekea ekarri dio eta nekeak logura goxoa. Patxi Iturritegi

Lo aski asaldatua egin banuen ere, begiak zabaldu orduko salto batez jaiki nintzen, zainetan barrena zebilkidan **adrenalina** uholdeak bultzatuta. Alberto Ladron Arana

---

adrendu 1 *iz* trebetasuna.

Badakit nik euskarari buruz egin daitezkeen hausnarketa eta gogoetak, ofizialki denok onartzen ditugun horiek ez badira bederen, beti pizten dutela eztabaida eta bihotz berotasuna eta batzuek tekutzat joko dituztela ere, **adrendua** ongi hartzen bazaio kontuari. Pello Salaburu

2 ***adrendua hartu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

-Adrendua hartu ezinik nago ze gauza klase madarikatua den hau dena. ETC-literatura, saiakera

---

adrenergiko *(corpusean ez dago; ETCn **60** agerraldi) izond* adrenalinari dagokiona.

Asma aztertzerakoan, batik bat, miaketa fisikoa, krisialdi kopurua, intentsitatea, gauean edo ahaleginarekin den, beta **adrenergikoaren** beharra, espirometriaren emaitzak... ETC-prentsa

Desoreka **adrenergiko**-kolinergikoa ere aipatzen da, sistema parasinpatikoaren nagusigoarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adrenalina erabiltzen duten neuronei **adrenergiko** deritze, entzima bat dute eta noradrenalina adrenalina bihurtzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Fenilefrina: alfa 1 agonista **adrenergiko** bat da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Biribilkatu eta okertu egiten dira hodiak; inguruak ehun konektibozko kapsula bat izaten du, eta nerbio-zuntz **adrenergiko** eta kolinergiko asko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Fenilefrina agonista **adrenergiko** selektibo bat da (hau da, hartzaile adrenergikoak modu selektiboan estimulatzen ditu), nagusiki aringarri gisa eta begi-ninia luzatzeko eta presio arteriala areagotzeko agente gisa erabiltzen dutena. ETC-entziklopedia

Feokromozito izeneko zelula **adrenergiko** eta noradrenergikoen hiperrazkundeak sortua. ETC-entziklopedia

Sistema **adrenergiko** edo noradrenergiko bezala ere ezagutzen da, gorputza estres egoera batean erreakzionatzeko prestatzen baitu. ETC-entziklopedia

---

adret *iz* trebea.

Ferreiros herrian baziren ferratzaileak, zaldien aztaparrak eta erromesen oinetakoak itzatzen zituztenak aita zenaren marteiluaren ukaldi **adretak**, belaunen artean zituen eskalapoietan joak, oraino entzuten ditut. Piarres Aintziart

---

adreza ik **adrezia**.

---

adrezatu, adreza(tu), adrezatzen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* da *ad* zerbait egitera jo edo zuzendu.

Hek dira demoniuari, zerbaiten jakiteko edo egiteko edo proximuari gaitz egiteko **adrezatzen** direnak. ETC-literatura, saiakera

---

adrezia *(orobat **adreza** g.er.) iz ipar* trebetasuna.

Badute beso, **adrezia** ere bai, sare hura ez ahanztekotan gai ederraren jabe dira denak, bai baigorriar eta bai senpertar Horiek. Herria

Besteen tema eta **adreziaren** berri dakiena ez da harrituko, errairen badiot, 31 etan denak elgarren bete zirela, adosturik. Herria

Kasu hortan ikusten dugu esperientzia eta **adrezia** handia duten presunak ere tronpatzen ahal direla tresnekilan eta zinez peningarri da. Herria

Irabazleek kontrario guti zuten, Larrechea biziki prestu eta Errecartek ez du erakutsi maite diogun olde balios eta **adrezia** hura. Herria

Horra hemen ere baigorriar batek erakutsi duela bere **adrezia** berezko horien artean. Herria

---

adriatiko 1 *iz* Itsaso Adriatikoa.

Eta aldiz, Apeninoen beste aldean, lurrak **Adriatikoa** ukitzen duen alderdian, ez dela honelakorik aurkitzen. Santiago Iruretagoiena

Trafiko honek diru asko eragiten du, zeren eta, **Adriatikoa** zeharkatzeko, etorkin albaniarrek 1.800 eta 200 euro bitartean ordaindu behar baitiete antolatzaileei. Berria - Mundua

Teresa bigarren solairuko leiho baten aurrean dago zutik, bere aitaren etxean, Romagna-ko zingiren eta pinudien gainetik **Adriatikoaren** gainean distiraz dagoen eguzkiaren aldera begira. Oskar Arana

2 ***Itsaso Adriatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Behe Erdi Aroan, Venezia izugarri aberastu zen Levanteko merkataritzaren kontrolari esker, eta **itsaso adriatikoan** zehar hedatzen hasi zen. ETC-entziklopedia

3 ***sugandila adriatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Sugandila adriatikoa ("Podarcis melisellensis") "Podarcis" generoko animalia da. Narrastien barruko Lacertidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

---

adskribatu, adskribatu, adskribatzen *(corpusean ez dago; ETCn **48** agerraldi)* da/du *ad* zerbait edo norbait aukera edo funtzio zehatz batekin lotu. ik **atxiki**.

Adskribatu gabeko zinegotzi izango da, eta EAko udal taldeari dagozkion eskubideak galduko ditu. ETC-prentsa

Orain arte talde hori osatu zuten hiru hautetsiek -Fermin Irigoienek, Ezekiel Martinek eta Izaskun Cebrianek- **adskribatu** gabeko zinegotzi gisa jardungo dute. ETC-

prentsa

Interes orokorreko aireportuak Sustapen Ministerioari **adskribatua** den AENAk (Espainiako Aireportuak eta Airetiko Nabigazioaren Erakunde Publikoa) gestionatuak dira. ETC-prentsa

Zierbena Betik eta Bilduk bina zinegotzi dituzte: EAJk, beste bi -hausturaren ondoren-, eta, **adskribatu** gabeen artean, EAJkoak ziren beste hirurak daude. ETC-prentsa

Esanguratsua da bizimodu bereizi hau ez zaiela ohiko gizakiei **adskribatzen**, eta egia esan sekula ez da gizakirik ziklopeen erara bizi izan, zeren eta gizakia funtsean animalia soziala baita, gizarte-bizitza azpigizakia gizaki bihurtzeko beharrezko baldintza den neurrian, eta hori gabe ez dago imajinatzerik eboluzio hori zertu zitekeenik. ETC-literatura, saiakera

Tarento eta Antziora **adskribaturiko** beteranoek ezin izan zuten, hala ere, leku haiek despopulatzerik ekidin, gehienak soldadutza eginiko probintzietara zabaldu baitziren; gainera, ezkontzen eta umeak hazten ohitu gabe, etxeak hutsik eta ondorengo gabe uzten zituzten. ETC-literatura, saiakera

Lurzorua araubidetan edo motatan bereizteari hirigintza-sailkapen deritzo, eta lurzorua zona jakin batera **adskribatzeari**, berriz, hirigintza-kalifikazio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zerbitzu berezietako egoera uzten duenean, non eta ez duen lehiaketa bidez beste plaza bat lortu, behin-behineko moduan **adskribaturik** geldituko dira zerbitzu aktiboa uztean lanpostua zuten Auzitegi Goreneko, justizia-auzitegi nagusietako edo probintzia-auzitegiko saletara edo herriko epaitegira, jarduten zuten kategoria eta jurisdikzio-ordena kontuan izanda. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bardean ez da gune populaturik, eta ez dago inolako udalerrira **adskribatuta**. ETC-entziklopedia

---

adskripzio *iz* norbait talde edo ideologia bateko kidetzat hartzea.

Urte haietako katalogoari begiratzen bazaio, argitaletxea ez da batere sektarioa, orduko kulturaren ispilu baizik: anitza, zientzia berriei irekia, katoliko progresistei aterik ixten ez diena, liburu bakoitzaren maila intelektualari gehiago begiratzen diona **adskripzio** ideologikoari baino. Anjel Lertxundi

---

adsorbatu, adsorba(tu), adsorbatzen *(corpusean ez dago; ETCn **271** agerraldi; orobat **absorbitu** ETCn **80** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **absorbatu** agertzen da)* du *ad* isurkari edo solido batek bere azalean lurrunak, gasak, likidoak edo solido disolbatuak jaso. ik **adsorbitu**.

Adsortziozko metodoetan bi substantzien arteko elkarrekintzak baino gehiago, **adsorbatzen** duenak eskaintzen duen gainazala da garrantzitsuena, eta horregatik nanoporoak dituzten adsorbatzaileak erabili ohi dira. ETC-prentsa

Oxigeno atomikoa **adsorbatu** duen grafitozko gainazal bat berotuz gero, esaterako, karbono monoxidoa askatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, ontziaren materialak ez du aromatizatzailea **adsorbatu** behar, eta, gainera, hermetikotasuna bermatzeko eta aromatizatzailea lurrundu ez dadin ziurtatzeko moduko itxitura bat izan behar du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Denbora-tarte horretan, malutek **adsorbatu** egingo dute materia organiko disolbagarria, eta material disolbagarri horren parte bat mikroorganismoen zelula-material bilakatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Proteina batzuek, tantetan **adsorbatu** ondoren, mintz bat eratzen dute tanten inguruan eta, hala, faseartekо tentsioari eragin gabe, emultsioak egonkortzera iristen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Urak birgaitzea: hondakin-ur birgaitu edo araztuetatik abiatuta, iragazi eta **adsorbatu** egiten dira urak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gas- edo likido-fasean dauden molekula erreaktiboak **adsorbatu** egiten dira katalizatzailearen gainazalean, eta han, elkarrekintzaren bat gertatzen da erreaktibotasun kimikoaren abiadura handitzen duena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Material honek dituen zuntz estu eta luzeak biriketara hel daitezke, bertan **adsorbatu** eta arnasketan arazo larriak eragiten ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

adsorbitu, adsorbi(tu), adsorbitzen du *(ETCn **80** agerraldi; orobat **absorbatu** ETCn **271** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **absorbatu** agertzen da) ad* isurkari edo solido batek bere azalean lurrunak, gasak, likidoak edo solido disolbatuak jaso. ik **absorbatu**.

Gainazaleko efektua da adsortzioa, xurgatzea ez bezala, substantzia bat beste batean sartu eta zabaltzea baita xurgatzea; belakiak xurgatu egiten du ura; bainugelako horma-paperak, berriz, **adsorbitu**. Irene Aldasoro

---

adsortzio *iz* isurkari edo solido batek bere azalean lurrunak, gasak, likidoak edo solido disolbatuak jasotzea.

Gainazaleko efektua da **adsortzioa**, xurgatzea ez bezala, substantzia bat beste batean sartu eta zabaltzea baita xurgatzea; belakiak xurgatu egiten du ura; bainugelako horma-paperak, berriz, adsorbitu. Irene Aldasoro

---

adstratu *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi) iz* elkarren ondoan bizi diren hizkuntzetan gertatzen den elkarreragin fenomenoa.

Hizkuntza-**adstratu** edo parastratu kontzeptuak lurralde berean bi hizkuntza elkarrekin bizi izan ondoren, gertu dauden lurralde desberdinetan erabiltzen direnean, bien arteko eraginen fenomenoa izendatzen du. ETC-entziklopedia

Valentziar Herrialdeko beste eskualdeekin batera hitz egiten den "churro" deitzen dioten hizkerak aragoieraren substratua eta katalanaren hizkuntza **adstratua** dauka. ETC-entziklopedia

Azalpena **adstratuan** edo nahasketa dialektalean bilatu denean, bridge dialectaren adigaia ahantzi da, dialektoek batzuetan beren artean zubi lana egiten dutenez, edo atzendu dira koine edo hizkuntza batu baten eraketaren ezaugarriak. ETC-literatura, saiakera

Hau guztiaz gain **adstratuaren** eragina ere kontuan hartu beharko dugu, hau da, latinarekin edo latinaren ondoan bizi izan ziren hizkuntzena (adibidez, arabiera Espainian). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

adu *iz* zoria.

Egileak Frantziako Akademiaren Saria eta internauten Internet Saria jaso izana ezin da **adu** hutsa izan. Berria - Kultura

Horren egilea, munduko olerkaririk famatuenetako bat izan baitzen, ez Espainia hutsekoa bakarrik; eta txit **adu** onekoa, Ovidioren ipuin batzuk itzultzerakoan. Patxi Ezkiaga

---

aduana 1 *iz* administrazioaren saila, atzerritiko salgaiei ezartzen zaien zergaz arduratzen dena.

Aduana pasa eta gero. Joxe Austin Arrieta

Aduanak irekita egon beharko zuen egun eta gau osoan, baina itxirik aurkitu dugu. Jon Arretxe

Gero proiektua aldatu zen eta, **Aduana** egitean Arnegiko lurretan, Zubihaundi-ko nagusiak berriz eskuratu zuen bere lehenagoko etxea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aduanen xedea, berriz, esportazio-inportazioen gainean halako eskubide bat izatea da, Estatuaren mesedetan halaber. Iñaki Iñurrieta

Dena jasan zuen gure protagonistak, adoretsu eta egonarriz jasan ere, eta, azkenean, lana aurkitu zuen **aduanan**. Jose Morales

Hainbatek salatu zuten Txitxikovek arima hilak erosten zituela, eta beste hainbatek, berriz, **aduanan** jardun zuen denboran kontrabandoan aritu zela. Jose Morales

Jakinarazi zien Estatuaren zerbitzuan jardun zuela eta lehenago **aduanetan** lan egin zuela, besterik ez. Jose Morales

Aduanako bulegoen aintzinean. Herria

Aduanako zigilua zeraman gutun bat hartu zuen gainerako paperen artetik, eta begiratu arduratsua eman zion. Anjel Lertxundi

Berrogoi ta hamar karabinero horiek, beren sendi edo familiekin, eta gero **aduanako** enplegatuak, poliziak eta beren emazteak, biltzen dira hiru ehun arrotz hurbil. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aduanako langileen lanpostuak kolokan daudela-eta manifestazioak egiten ari dira inguruan. Harkaitz Cano

Aduanako guardak, ura goitituz bezala, loturik egon ziren luzaz ondo hortan zutik zeuden burdin batzueri. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ikusten zuen zeinen huskeria dotoreak eskuratzen zituzten **aduanako** funtzionarioek atzerritik eta nolako portzelanak eta batistak bidaltzen zizkieten amabitxiei, izebei eta arrebei. Jose Morales

Aduanako ikuskatzaile eta funtzionarioez aritzen baziren, bera noizbait ikuskatzaile eta funtzionarioa izan balitz bezala jarduten zuen haien gainean. Jose Morales

Herri txikia zen eta euskalduna osorik, jakina, guardia zibilak eta **aduanakoak** izan ezik. Agurtzane Juanena

Iritsi zen halako batean alde bateko eta besteko **aduanetako** poliziei pasaportea erakusteko momentua Biharamun goizean Napumoceno jaunak presaka egin zituen salgaien **aduanetako** tramiteak, betiere euripean. Anjel Lertxundi

Ia egun osoa behar izan zuten berez goiz partean aise egiten zen Pausuko **aduanarainoko** bidean. Anjel Lertxundi

Ezin izan zuen, alabaina, heldu eta berehala horrelakorik egin, konpondu beharreko hainbat arazo aurkitu baitzituen erabakitzeke, batez ere **Aduanarekikoak**. Bego Montorio

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ia ahaztuta neukan zelako hotza egiten zuen **aduana**-eraikinetik kanpo, hainbeste ordu eman ondoren barruan. Jon Arretxe

Astelehenean, **aduana** zerbitzuetan diharduen gabarrazain batek, Sena ibaian behera hutsik zihoan txalupa bat ikusi zuen. Koro Navarro

Silvio legelaria zen, baina filosofia-tratatu bat idazten ari zen tipula-paperezko orri ñimiñotan eta garraio- eta **aduana**-enpresa batean enplegaturik zegoen. Juan Garzia

Palermoko higiene-zerbitzukoak eta **aduana**-bulegokoak. Jon Muñoz

Izan ere senarrak, adiskide **aduana**-enplegatu batekin egotetik itzuleran, neska aurkitu zuen bere ohean. Anjel Lertxundi

Enpresa multinazionalek **aduana**-hesi berriez babesturik egongo ziren merkatuen jabegoa gordetzeko. Koro Navarro

Frantzian, probintzien arteko **aduana**-batasunak lurralde osoaren hiru bosten hartu zituen, eta ez zen 1664 arte egin. Koro Navarro

Aduana-kontua berehalaxe bukatu da. Joxe Austin Arrieta

Trenaren bidean zutik utzi zituzten geltokiak gerrate karlistetako eraikuntzak dirudite, **aduana** itxura dute. Pako Aristi

3 ***aduana agente*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Misioa osatzen dutenean, EBko 1.900 polizia, epaile, **aduana agente** eta administrari arituko dira lanean Kosovon, bertako 1.110 jarduleez gain. ETC-prentsa

Izan ere, konpainien monopolioa hautsita, erregeak **aduana-agenteen** bidez kontrolatu nahi zituen baimendutako portuen merkataritza-mugimenduak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Calypso hustera zihoazela jakin zuenean, **aduana-agenteak** amari erregutu zion pianoa ez zezatela enkantean sartu, berak erosi nahi baitzuen. ETC-literatura, saiakera

Poemak errezitatzen zituen pianojolea, emakumezkoa, Turismo Bulegorako esloganak idazten zituen jostuna, gizonezkoa, Sevillako Udalaren Nobela Sarian finalista izandako **aduana agente** bat, ez gizonezkoa ez emakumezkoa... ETC-literatura, saiakera

Guraso abertzale eta euskaltzaleengandik musika, dantza eta, oro har, euskal kultura jaso zuen. Aita, Pontxio, **aduana agentea**, Gurutze Santuaren Plazako Gure Borda etxekoa. ETC-entziklopedia

4 ***aduana etxe***

Azkenean **aduana-etxera** joatea proposatu du. Urtzi Urrutikoetxea

5 ***aduana zerga***

Oso bestela, uste zuen **aduana zergak** kobratzea maskaratutako estortsioa baino ez zela, hau da, Estatuak gutako bakoitzaren poltsikoan sartzen zuela eskua, ordainetan onurazko ezer eman gabe. Bego Montorio

6 ***aduanako deklarazio*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ondasun bat inportatzen duelarik, aduanako eskubideak ordaindu eta **aduanako deklarazioa** egin behar dutenei. ETC-literatura, saiakera

7 ***aduanako tarifa*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Dumpinga debekatua daukate Merkataritzari eta **Aduanako Tarifei** buruzko Akordio Nagusiak eta Erromako Tratatuak. ETC-prentsa

GATT: Merkataritzari eta **Aduanako Tarifei** buruzko Akordio Nagusia GCC: Golkoko Lankidetzarako Kontseilua ETC-zientzia, zuzenbidea

Dumpinga debekatua daukate Merkataritzari eta **Aduanako Tarifei** buruzko Akordio Nagusiak eta Erromako Tratatuak. Hala ere, zenbait herrialdek konkurrentzia desleialeko praktika horiek egiten jarraitzen dute eta, eten ezean, lur jota utz ditzakete herrialde bateko giltzarriak diren sektore ekonomiko edo industriala. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aduana akordioa** (4); **aduana etxean** (5); **aduanako funtzionarioek** (3); **aduanan lan** (3); **ankarako aduana** (5); **ankarako aduana akordioa** (4); **eta aduana** (6); **zuen aduana** (3)

---

aduanaburu *iz* aduanako burua.

Aduanaburu egiten zuena berlinaraino hurbildu, eskua lokira eraman, eta guardia-jarreran zurrundu zen. Anjel Lertxundi

Duvoisin kapitainarentzako diosalak itzuli zizkion Willemek **aduanaburuari**, eta, Arrueren gutuna harturik, eskuz esku eta inolako okerrik gabe emango ziola agindu zion. Anjel Lertxundi

Duvoisin horrek Willemen biboteen berri eman dio **aduanaburuari** duda izpirik gabe, eta horrexegatik ezagutu du. Anjel Lertxundi

---

aduanari *iz* aduanazaina.

Lehenengo, morroi bat hurbildu zait eta esan dit: **"Aduanaria** naiz", eta nik ukabilkada bat eman diot, berari pistola ateratzeko astirik utzi gabe, eta uretara. Lopez de Arana

---

aduanazain *iz* aduanako enplegatua.

Aduanazainek pasaportea ikuskatu eta bidaiaren arrazoia zein den galdetzen duten bitartean egingo dizkiete bidaiariei argazkiak kamera digital batekin. Berria - Mundua

---

aduktore *iz* giharrez mintzatuz, gorputzaren atal bat haren simetria ardatzera hurbiltzen duena.

Soleo muskuluan du haustura, izterrean, **aduktoreetan**. Berria - Kirola

Eskuin izterreko **aduktorean** zaintiratua dauka Martin Mauricio Astudillo Alaveseko jokalariak Eskarotzekoak gainditu du eskuin zangoko **aduktoretan** zuen gainkarga.

Berria - Kirola

Tellezek ez zuen lan saio osoa amaitu ezker hankako **aduktorean** uzkurdura duelako. Berria - Kirola

Bi hilabete egin ditut ia geldirik, **aduktoreetan** mina nuelako. Berria - Kirola

Riazorreko partidan eskuin zangoko **aduktoreetan** kontraktura bat egin zuen Cesar Krutxagak. Berria - Kirola

---

aduktu *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)* *iz* bi molekula lotura kobalente baten bidez elkartuta sortzen den entitate kimikoa.

Erreakzio osagarrian, trans **aduktu** bat sortzen da dimetilo trans-2-butenodioatotik (dimetilo fumaratoa, trans alkeno bat). ETC-zientzia, zuzenbidea

Alkino OH erreakzioak lotura hirukoitzari eginiko adizioaren bidez gertatzen dira, eta **aduktu** oso egonkor bat formatzen da, zeinak oso bizkor erreakzionatzen baitu O2-arekin, bi kanalen bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Argi urdinarekin argiztatu ondoren, FMN molekula kobalenteki lotuko zaio fototropinaren zisteina-hondar bati, eta, hala, zisteinaflabina **aduktu** kobalente bat sortzen da (Schleicher et al., 2004). ETC-zientzia, zuzenbidea

Sarreran esan dugun bezala, ICL edo **aduktu** hauen konponketarako Fanconi Anemiaren bidezidorra erabiltzen da, eta bidezidor honen azken pausua, eta garrantzitsuenetarikoa, errekonbinazio homologoa (EH) burutzea da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sodio karbonatoaren ("soda errautsa" edo "detergente") eta hidrogeno peroxidoaren (perhidrato bat) **aduktu** bat da. ETC-entziklopedia

---

adularia *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* feldespato mota gardena, gehienetan koloregabea dena.

Juan S. Cozarren eta Cristina Sapalskiren azterketa gemologikoak, Guarrazarreko altxorrak 243 zafiro urdin (euren ezaugarriek egungo Sri Lankatik datozela diotelarik) 3 korderita urdin (iolitak), 14 esmeralda, aquamarina 1, 2 ortosa **adularia** (ilargi harriak). ETC-entziklopedia

---

adultera *iz* adulterioa egiten duen emakumezkoa. ik **adultero**.

Adulteren sehaska kanten berri izan nuen bere bidez harreman pertsonalen majia, eta ñabardura guztiekin ikas nitzan **adulteren** trikimailuak Arrolos bilduma zoragarria jaso nuen gero postontzian. Berria - Kultura

---

adulteratu, adultera(tu), adulteratzen du *da* zerbait, eskuarki janari edo elikagai bat, faltsutu beste zerbaitekin nahasiz.

Legamiaren kalitatea **adulteratzen** duen errotari baten diru-gosea. Anjel Lertxundi

Ospitalera **adulteratuta** ailegatzen zen odolaren zergatia. Josu Landa

Baita odol **adulteratuarena** ere. Josu Landa

Ematen zuen Ekialdekoek azkenean oharkabean hartu zutela, kristautasunarekin elkartuta, **adulteratu** eta mozorrotu gabe eskaini zitzaienean beraiek hain kartsu errefusaturiko kultura. Iñaki Mendiguren

Gure gizarte honetan, ordea, biak ikusten ditut nik beren onetik aterata, **adulteratuta**: nola lana hala festa ere. Joxerra Garzia

Minioa karea nahastuz **adulteratzen** da. Santiago Iruretagoiena

---

adulterazio *iz* adulteratzea.

Hiru mugimendu bereizi behar dira: filosofi eskola banatuen amalgamak; erlijio banatuen amalgamak, adibidez, Israelgo erlijioaren **adulterazioa** auzoko kultuekin nahasteagatik, honi kontra egin ziotelarik, azkenean arrakastaz, hebrear profetek; eta filosofien eta erlijioen arteko amalgama edo sinkretismoa. Iñaki Mendiguren

Lehen aldia da lanetik kanpo elkar ikusiko dutena, ke eta musikaren **adulterazioarik** gabe, gordinik. Eider Rodriguez

Amaituko dira, hartara, **adulterazioaren** inguruko arazoak. Iban Zaldua

---

adulterio 1 *iz* ezkontidea ez den beste pertsona batekin izandako sexu harremana.

Balore-nahasketa, esker ona baztertzea, arimen kutsadura, sexu-perbertsioak, ezkon-desordenak, **adulterioa** eta lizunkeriak. Elizen arteko biblia

Lapurreta, hilketa, **adulterioa** eta lizunkeria lege zibilen bitartez ezagutzen dira. Esteban Antxustegi

Lege zibila da, ez naturala, zeri deitu behar zaion lapurreta, zeri hilketa, zeri **adulterioa** eta zeri irain esaten duena. Esteban Antxustegi

Adulterioa, Eugeni, gure bizitzarekin ordaindu beharreko krimentzat hartzen dena, naturari ordaindu beharreko zerga besterik ez da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Madarikazioa eta gezurra, hilketa, lapurreta eta **adulterioa** ugari, odola odolaren gain. Elizen arteko biblia

Ez egin **adulteriorik**, ez hil inor, ez ostu. Elizen arteko biblia

Emaztea utzi eta beste batekin ezkontzen denak **adulterio** egiten du; eta senarrak utzitako emakume batekin ezkontzen denak **adulterio** egiten du. Elizen arteko biblia

Adulterioak ondoriorik ez badu, eta senarrak ezer ez badaki, ez da legelaririk kasu horretan krimena egon dela froga dezakeenik; **adulterioa**, orduan, senarrari batere axola ez dion gertaera izango da, ez baitu horren berririk. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Imita itzazue Greziako errepublikarrak; haien legegileek ez zuten **adulterioa** krimentzat hartzen zuen legerik sekula egin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Amodio lizunak, jelosiak, **adulterioak** eta adarrak agertzen dira nonahi. Berria - Kultura

Orduan, lege-maisu eta fariseuek emakume bat, **adulterioan** harrapatua, ekarri zioten. Elizen arteko biblia

Bere emaztea uzten duenak -legearen kontra elkartuak ez badira behintzat- **adulteriora** bultzatzen du emaztea; eta utzitako emakume horrekin ezkontzen denak **adulterio** egiten du. Elizen arteko biblia

Zergatik deritzozu zuk **adulterioari** egintza gaiztoa, legeak debekatzen duelako, agian? Imanol Unzurrunzaga

Naturak zeinu nabarmenez markatu duelako emakumeen infideltasuna, emaztearen **adulteriozko** haurrak senarrarenak izatera eta senarraren kargura pasatzeaz gainera. Iñaki Iñurrieta

2 (hitz elkartuetan)

Badira, hala ere, frogatzen errazak diren **adulterio** mota batzuk, emakumearentzat gogaikarriagoak direnak, baina ez horregatik kriminalagoak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hau da **adulterio**-susmoaren legea, senarraren eskumende egonik, emaztea desleial izan eta desohoratzen denerako. Elizen arteko biblia

Adulterio-kondenaren ondoren emaztea berriro etxean hartzen zuen senarra, zigortu egiten zuten emaztearen gehiegikerien sopikun gisa. Iñaki Iñurrieta

Begiak **adulterio**-irrikaz dituztela, ez dira bekatuz inoiz asetzen. Elizen arteko biblia

Ez da, halaber, **adulterio**-haurrik herrialde horietan. Iñaki Iñurrieta

3 irud/hed

Hau deitzen zuen **"adulterio** kulturala". Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adulterio egin (6); **adulterio egiten** (9); **adulterio egiten du** (7); **adulterioa eta** (12); **adulterioa ez** (7); **adulterioa ez da** (3); **adulterioa gaitza dela** (3); **denak adulterio egiten** (3); **eta adulterioa** (3); **ez adulterioa** (3); **ez egin adulteriorik** (8); **ezkontzen denak adulterio** (3)

---

adulteriogile *izond/iz* adulterioa egiten duena.

Ai emazte **adulteriogile** hori, zeure senarraren ordez arrotzak hartzen dituzuna! Elizen arteko biblia

Kontuz emakume **adulteriogilearekin** . Elizen arteko biblia

Honela jokatzen du emakume **adulteriogileak** : jan, ahoa garbitu eta "Ez dut ezer txarrik egin" esaten du. Elizen arteko biblia

Hiru motatako jendea gorrotatzen dut bene-benetan, biziki sumintzen nau horien jokaerak: behartsu harroa, aberats gezurtia eta burugabeko agure **adulteriogilea** . Elizen arteko biblia

Adulteriogileen seme-alabak ez dira sasoi betera iritsiko, legez kontrako harremanetatik sortuak desagertu egingo. Elizen arteko biblia

Zorrotz salatuko ditut sorginkeriazale, **adulteriogile** eta gezurrezko zin-egileak. Elizen arteko biblia

Adulteriogileen eta hiltzaileen zigorra emango dizut eta, zeure desleialkeriagatik haserre eta amorruz, heriotzara kondenatuko. Elizen arteko biblia

Zurrumurruen arabera arnegari bat zen, **adulteriogile** , papista, herrinahasle eta harroputza. Juan Garzia

Adulteriogileak , musulmanak izan arren, hiltzea ondo dago. Berria - Mundua

Baina gizon zintzoek epaitu egingo dituzte, **adulteriogile** eta hiltzaileei dagokien zigorra emanez. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adulteriogile eta (5)

---

adultero *izond/iz* adulterioari dagokiona; adulterioa egiten duen pertsona. ik **adultera**.

Bostondarrek Hester Prynneri leporatzen zioten sasiko neskato bat munduratu izanaren lotsagarrikeria **adulteroa** , kasu. Anjel Lertxundi

Iragan ebanjelikora itzuliz, zilegi zaigu duda egitea mundua, garai hartan, bere burua salbatzeko Jainko baten Semea behar izateko bezain bizioz josia ote zegoen, emakume **adulteroaren** pasadizoak berak erakusten baitigu gauzak ez zeudela horren gaizki Palestinan Senarra itsasoan duela, sasiko haur bat munduratu izanaren lotsagarrikeria leporatzen dioten neska gazte **adultero** baten oinazeak kontatzen ditu. Jon Alonso

Zer nolako aurpegiz aterako nintzateke kalera nire soinekoan **adulterotzat** salatuko nindukeen adabaki batean A gorrimin iraingarri bat brodaturik banerama? Anjel Lertxundi

Basedowek ospitaleak bisitatzera eramaten zituen ikasleak, hauek bere begiekin ikus zezaten zer nolako gaitz izugarri eta lotsagarriek jotzen zituzten prostitutak, eta **adulteroak** orokorrean, bere portaera inmoralagatik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

adulto *(ETCn **36** agerraldi, horietatik **21** azken sei urteetan) izond* helduaroari dagokiona.

Jakina, zuk orain uste duzu mandingoak kristoren zuztarra zeukala esango dudala, baina hala uste baduzu, ez dakizu zer den sexu **adultoa** . Jon Alonso

---

adur[1] 1 *iz* lerdea.

Jendeari oraindik jausten zaio **adurra** haiei begira. Berria - Kultura

Lotan zen, **adurra** zeriola, eta bularrean egina nion gurutzea urrezkoa zela begitandu zitzaidan. Edorta Jimenez

Adurra zerion, zakur amorratuari baino jario ugariagoan. Edorta Jimenez

Urduri, **adur** sikua ahoan, gaztaroko lehenengo boxeo borroka hartan bezalaxe. Paddy Rekalde

Adur txistu ahalik lodiena mihi gainean bildu eta, indar guztiarekin jaurti nuelarik, haizearen indarrez txistua nire aurrean apurtu eta aurpegi aurpegira jausi zitzaidan. Joseba Sarrionandia

2 *adur-zapi* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Kokospekoa (beste izenez: **adur-zapi** , lerde-zapi, pantota) janzki bat da, haurrei paparrean jartzen zaiena apairuetan zikindu ez daitezen. ETC-entziklopedia

Altxatu, beste Coca Cola lata bat atera, eta sabelari igurtzika eseri da berriz ere, zango mindua luzetara jarrita: seguru **adur-zapia** ipini diotena! ETC-literatura, saiakera

Koloretako paperen azpian B edo Beñat edo BB hizkiak brodatuta dituzten pijamatxoak, toallak, txanoak, izara txikiak eta **adur-zapiak** agertu dira. ETC-literatura, saiakera

Eta gauean afaltzera jaitsi ginenean, jada ez ginen zazpi, hamar baizik, eta mahaian, plateren ondoan biberoiak, **adur-zapiak** eta koloretako koilaratxoak agertzen hasi ziren. ETC-literatura, saiakera

Mojak esan zidan zer ziren: **adur-zapiak** , jantzi txikiak, txintxirrinak, txamarrak. ETC-literatura, saiakera

Josu negarrez itzultzen zen egunero, andereño sadikoak bere **adur-zapi** kutuna gelan utzarazten ziolako, araua hura zelakoan. ETC-literatura, saiakera

"Gozatzen gabiltza; guk behar dugu **adur zapia** hari begira", dio irribarretsu. ETC-prentsa

Izan ere, fardel-tarta oinarria litzateke eta gero oparitxoak gehitzen dizkiot horri: peluxe bat, **adur-zapia** , bodya, toalla txikia, silikonazko goilarea, sonajeroa, jaboia, kolonia, txupetea, biberoia... ETC-prentsa

Urte bat eta sei artean dituzten umeen gurasoei eskuorri bat, **adur zapi** bat, askari poltsa, liburuxka bat eta CD bat emango dizkiete, "umearen inguru hurbilean euskara sustatzeko". ETC-prentsa

Halakoak orokortzera eta normalizatzera jotzen ari diren arren, polemika batzuk ere izan dira: iaz, **adur zapi** batzuk erretiratu behar izan zituen saltoki batek, lelo sexistek eragindako kexen ondorioz. ETC-prentsa

Zuk zeuk egin filosofiari jarraiki, haurrentzako mantak, **adur zapiak** eta abar egiten ditugu. ETC-prentsa

3 *adurra dariola egon*

Adurra dariola egongo da jaioberriarekin, eta edozer gauza egiteko gai izango da hura babesteko eta zaintzeko. Luis Elberdin

Hots, arnasestu eta hasperenetatik irudikatzen nuen zakila gogor-gogorra zuela, bere zainak lehertzeko moduan nabarmenduko zirela, bere mutur distiratsua **adurra dariola zegoela** , korritzeko zorian, erremediorik gabe... Juan Martin Elexpuru

4 *adurra jario* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Areago, XX. mendetik atzera joanda, garai ezberdinetako **adurra darien** burdinolak eta meategiak bisitatuko dituzte, XIX. mendeko Industrializazio garaikoak batzuk, Aro Modernoan errotutakoak beste zenbait, eta erromatarrek eginiko ustiapenak ahantzi gabe. ETC-prentsa

5 *adurra zeriola egon*

Bestalde, Hermione **adurra zeriola zegoen** Lockharti entzuten, eta izutu egin zen bere izena entzun zuenean. Iñaki Mendiguren

Adurra zeriola zegoen bestea. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adurra dariola (7); **adurra zeriola** (4); **adurra zerion** (3)

adur[2] *iz* zoria, zortea.

Hara Cervantesek: Bakoitza da bere **adurraren** egile: Fortuna ez da horren erantzule. Anjel Lertxundi

Bide hark Coruñara eroango gintuen, ez gure erabakiz, ezpada **adurraren** aginduz lehenik eta behin, eta agintarien aginduz gero. Edorta Jimenez

Ziurrenik, hurrengoan ez du halako **adur** onik izango. Berria - Gaiak

Hire jaka hori hain **adur** onekoa baldin bada, jantzi ezak horixe berori hara igotzeko. Edorta Jimenez

Adur gaiztokoa zen hura. Koldo Izagirre

Norbaitek haren zurruntasuna aipatu zidan eta lagunarterako zuen **adur** eskasa. Joxean Agirre

Ontzian sartua nintzenez geroztik jazarri egiten ninduela uste nuen **adur** txarraren beste aieru bat ote zen lotu nintzen, zer erantzun jakin barik. Edorta Jimenez

Eta **adurra** hain kontra genuelarik, gainera. Edorta Jimenez

Orduak eta orduak lo sakon egiteko **adurra** zuen eta zoria. Joxean Agirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
adur ona (3); **adur oneko** (5); **adur txarrekoa** (7); **hain adur** (3)

---

adurti *izond* adurra edo lerdea duena edo dariona. ik **lerdetsu**; **apartsu**; **haguntsu**.

Izterreko eskua azpiko gonan gora zihoakion bitartean Anjelmari salatzen zuen ahots **adurti** batek "Eukeniii" esan zion mutur ondoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Komun paretik ozenago entzuten da Bombaren ahots **adurtia**, haserre bizian bezala. Paddy Rekalde

Kopa bat eskaini zidan atzera, berak beste bat zerbitu zuen eta, hura eskuan, nire tramankulu gogor eta **adurtiaren** gainean eseri zen. Juan Martin Elexpuru

---

adurtsu *izond* adurrez betea.

Begi urdin negartsuak zituen, eta kliskatu eta kliskatu zerabiltzan suaren aurrean, eta ahoa, **adurtsua**, zabalik geratzen zitzaion batzuetan, eta, atzera ixten zuenean, karraskots bat ateratzen zion behin edo bitan, mekanikoki. Irene Aldasoro

Ellenen oinetan, alkandora tarrataturik eta lohiturik zuten makina bat ume zeuden; ahoak **adurtsu**, ukabilkadak, ausikiak, atzamarkadak; narrats-usaina isurtzen zuten, ogi lizunak bezala. Lopez de Arana

---

aduzitu, aduzi(tu), aduzitzen du *ad* argudiatu.

Beharbada mendebaldeko pentsalaririk koherenteena, honetan, Sadeko markesa izango zen, krimenaren atsegina justifikatzeko, naturaren suntsigarritasuna **aduzitzen** zuena. Xabier Amuriza

---

adxudant *iz ipar* laguntzailea.

Bestalde,Pierre Larramendy auzapez egon zen denboran, haren lehen **adxudanta** izan zen eta orduan ere etzen segur alfer egon, dela kulturaren ala erakaskuntzaren alorretan, dela beste edozoinetan. Herria

---

aedo *iz* Antzinako Grezian, epopeiak jendaurrean kantatzen zituen artista.

Denek jan eta edan zutenean, **aedoa** kantuan hasi zen; Troiako gerrako gorabeherak kantatu zituen, Ulisesen, Akilesen, Agamenonen eta beste askoren berri emanez. Juan Kruz Igerabide

Errealismo osoz deskribatzen digu Homerok nola jokatzen duen botereklaseak edo aristokraziak politikan, nola erabiltzen duen limurtzea, nola abiarazten duen hain gaurkoa den ikuskizunezko zilegitasuna, nola antolatzen duen **aedoen** bidez propaganda-tresna eraginkorra. Askoren artean

---

aereo *izond* airekoa, airea bezalakoa.

Katedraleko dorreak egon beharrean meskita nagusiko alminarra egon izan balitz, ez zuen ikusten ahalko, zen bezain meharra izanik, **aereoa**, ezin neurtuzkoa kasik, eta orduan, huraxe balitz ordua, almuedanoaren ahotsa zeru zuritik jaitsiko zen, Alarengandik zuzenean. Jon Alonso

---

aerobic *(orobat **aerobik**) iz* gimnastika mota, musikaren laguntzarekin egiten dena eta arnasketaren erritmoaren kontrolean datzana.

Gimnasioa, igerilekua, ur-termak, **aerobic** eta muskulazio ariketak egiteko gelak, kafetegia eta abar izango lituzke eraikin berriak. Berria - Euskal Herria

- **Aerobikeko** irakaslea da gure betiko klubean, Atletico San Sebastianen, eta ikasleak liluratuta dauzkala entzun det. Jon Arretxe

Gimnasia saioak egiten nituen gordeka, ipurmamiak mehetzeko, eta **aerobic** ikastaro batean ere hasi nintzen, baina ez nuen nire gibelaldearen neurria murriztea lortu. Joxan Elosegi

Eskulanen mintegiak eta yoga eta **aerobik** ikastaroak ez dira aski. Berria - Euskal Herria

Berbenak aipatzen, ez ditu dantzalekuak aipatzen, altaboz erraldoi horiek, fokoak jotzeko orduan, gitarra, gitarra-baxua, emakume kantariak, rock taldeak, txalaparta, alboka, triki-popa, Itoiz, [...] bertsolari txapelketak, **aerobica**, piercinga, Sorginen Laratza... Pako Aristi

---

aerobik ik **aerobic**.

---

aerobiko *izond* oxigenoz hornitzen duena.

Arrauna kirol **aerobikoa** da neurri handi batean, horregatik, gorputzaren alderdi **aerobikoa** landu behar da; txirrindularitzan, atletismoan eta igeriketan bezala. Berria - Kirola

---

aerobio *(corpusean ez dago; ETCn **497** agerraldi)* **1** *iz/izond* bizitzeko oxigenoa behar duena.

Aerobio izena bizitzeko oxigenoa behar duten izaki guztiei aplikatzen zaie, eta baita oxigenoa behar duten prozesu biokimiko guztiei ere. ETC-entziklopedia

Aerobioa da eta -Bacillus guztien antzera- endosporak sortzeko gai da. ETC-entziklopedia

Lehenik mikrobio **aerobioak** abiatzen dira bertara jateko bila. ETC-literatura, saiakera

Hartzidura hori **aerobioa** da, airea behar du, hobe esanda, aireko oxigenoa behar du. ETC-prentsa

Aurretiazko bereizketa mekanikoaz gain, digestio anaerobiorako eta digestio **aerobiorako** lineak ditu, eta baita gaika biltzen den materia organikoa konpostatzeko zati bat ere. ETC-prentsa

f) Oxigenoa: mikrobio batzuek (**aerobioek**) airea ezinbesteko dute, beste batzuek (anaerobioek), aireak ukitzean hiltzen dira; baina oxigenoa denek dute nahitaezkoa. ETC-prentsa

Lapatxeko konpostatze prozesua **aerobioa** da guztiz; oxigenoaren laguntzarekin egiten dela esan nahi du horrek. ETC-prentsa

- Mikroorganismo **aerobio** , anaerobio eta legamietarako hazkuntza-inguruneak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortaz, metabolismo **aerobioa** erabiltzeaz gain igel hauek metabolismo anaerobiora jo behar dute, hau da, oxigenoa beharrezkoa ez duten ATParen sintesi-bideak erabili behar dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aerobio zorrotzek ingurune oxidatzaile bat behar dute, eta anaerobio zorrotzek, ordez, ingurune erreduktore bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 *aerobio hertsi* *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi)*

Aerobio hertsia hazteko oxigenoa behar duen organismo bat da. ETC-entziklopedia

Aerobio hertsiak saio-hodiaren goiko aldean bakarrik haz daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mesofiloa da, **aerobio hertsia** eta ingurugiro azidoak jasateko gaitasuna du. ETC-entziklopedia

Aerobio hertsia da eta ez du esporarik sortzen. ETC-entziklopedia

Bazilo txikiak dira (kokobaziloak, 0,6/0,2 mikrakoak) eta **aerobio hertsiak** . ETC-entziklopedia

---

aerodinamika *iz* ibilgailu edo objektu bat aerodinamikoa izatea ahalbidetzen duten ezugarrien multzoa.

Focusak **aerodinamika** , txasisa eta motorra berritu ditu, eta ez du emaitza txarra jaso. Berria - Kirola

Aerodinamika bera ere barruko aire fluxuek agintzen dute neurri handi batean, eta hori bereziki landu dute, erradiadore konplexu bezain ikusgarri batzuekin, adibidez. Berria - Kirola

Ez du potentziarik, ziklista txiki arina delako, gihar gutxikoa, eta, ez du **aerodinamikarik** , txikia izateko oso tente ibiltzen delako. Berria - Kirola

Motor berriak **aerodinamikari** modu zuzenean negatiboki eragiten badio ere, Renaulteko ingeniariek asko landu dute barneko osagaien antolaketa, ahalik eta auto osatuena egiteko. Berria - Kirola

Aerodinamika ona eduki gabe irabaz daiteke, baina **aerodinamika** onak asko laguntzen du. Berria - Kirola

Seguruenik hemendik bi astera probatuko dut, Italiako Vairano zirkuituan, **aerodinamika** proba batzuetan. Berria - Kirola

Erregai kopuruak eta **aerodinamikak** eragina badute ere, oker handiegirik egin gabe esan daiteke Ferrari, BMW eta Honda direla bultzada gehien duten motorrak gaur egun. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aerodinamika onak** (3)

---

aerodinamikari *iz* aerodinamikan aditua den pertsona.

Adrian Newey **aerodinamikaria** eta Tombazis ingeniaria galdu dituzte. Berria - Kirola

Antonia Terzi **aerodinamikari** italiarraren nahiari ez diote trabarik jarri taldean, emakume horrek Ferrarin eginiko lanak berme dezentekoa eskaintzen baitu. Berria - Kirola

---

aerodinamiko 1 *izond* aerodinamikari dagokiona; airearen eragozpena murrizteko forma egokia duena.

Alboko aire sarrerak, motorra hozteko dauden erradiadore erraldoiak elikatzen dituztenak, forma biribildu eta **aerodinamikoa** dute, atzealdera doan airea ahalik eta gutxien nahasteko. Berria - Kirola

Auto horrek, F2004ak, zein konfigurazio **aerodinamiko** zuen, 2004koa ala 2006koa? Berria - Kirola

Eta, makurtuz, ukitu egin zuen -Jaguar V-12 estilizatu **aerodinamiko** bat zen- eta zein zapala zen egiaztatu. Xabier Olarra

Bokal ahokariak, horiek entzuten baitira ongien eta horiek ateratzen baitiote gure hots ekoizpen gaitasun **aerodinamikoari** etekinik handiena. Lourdes Oñederra

Kontsonante sudurkariak, beren izaera **aerodinamikoagatik** , erraztasun handiagoa dute ahostun izateko eta hala izaten dira hizkuntza gehienetan. aAutoek daramaten karga **aerodinamiko** baxuek balaztatze distantzia luzatu egiten dute, eta gidariak lan egin behar du autoa desegonkorra delako maniobra horretan. Lourdes Oñederra

Autoaren puntu egokia altuerak, karga **aerodinamikoak** , malgukiek, jauskerak, indargetzaileek eta beste hainbat gauzek ematen dute, eta konbinaketa egokia entrenamenduetan lortzen da. Berria - Kirola

2 *tunel aerodinamiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Demagun adibidean ageri den hegala kontrolpeko baldintza batzuetan aztertu nahi dugula eta hegal osoa hartzeko gai den tunelik ez dugunez tamaina erdiko eredu bat erabili behar dugula gure **tunel aerodinamikoak** har dezakeen handiena delako. ETC-entziklopedia

---

aerodinamikoki *adlag* aerodinamikaren aldetik.

Tutuok zenbat eta handiago, **aerodinamikoki** autoa motelagoa da, eta taldeek ere txiki mantendu nahi izaten dituzte. Berria - Kirola

Horrela, haizeak bere bidean ez du oztoporik izaten, esekiduraren lotze puntua erdian joan ordez alboetara eraman eta erdiko zatia **aerodinamikoki** garbiago gelditzen baita. Berria - Kirola

Hau da, **aerodinamikoki** ez ezik, dinamikoki ere eragin zuzena izango du. Berria - Kirola

---

aerodromo *iz* hegazkinek, eskuarki hegazkin militarrek, aireratzeko eta lur hartzeko gunea. ik**aireportu**.

Trena gelditzen hasi ez balitz, eta itxiturako ate nagusian ikusi ez banu Adlerhaus zioen errotulu handi bat hegazkin baten marrazkiarekin, ez nuen asmatuko **aerodromo** bat zegoela burdinsarezko hesi altu herdoilduaren barrutian. Anjel Lertxundi

Bardeako tiro eremua ez ezik, Ablitas herriko **aerodromoa** ere baliatuko dute militarrek Nafarroan. Berria - Euskal Herria

Aire-armadaren baseak **aerodromoak** eta instalazioak erabilgarri egongo direla azaldu dute ariketa horiei sostengua emateko. Berria - Euskal Herria

Idazle frantsesak bere memorietan aipatzen duen animalia bakarra, **aerodromora** gero eta sarriago hurbiltzen zitzaion -eta hezten saiatu zen- azeria baino ez da, gerora literatur kritikariek Printze Txikia ipuinean agertzen denarekin alderatu izan dutena. Patxi Zubizarreta

Gerra hori amaitu zenean, Frankfurteko **aerodromo** abandonatu batean ezkutaturik zeukaten hegazkin handi bat aurkitu zuten. Pako Aristi

Joanden larunbat aratsaldean, irailaren 10ean, ezkondu dira Herriko Etxean Marc Henri Barbiria eta Caroline Rachou (hau **Aerodromoko** bidean bizi zena). Herria

Guk gaurko egunean ikasi dugu, burdin hariaren ondotik pasa den nekazari batek esanda, patata ateratzera eramandako juduak lubaki sakonak ari direla zulatzen hiritik lau kilometrora, **aerodromotik** gertu, Romanovkara bidean. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aerodromo bat (3); **aerodromotik bota** (3)

---

aeroenbolia *iz* odolean eta burmuinean burbuilak eratzea, atmosfera presioaren eraginaren ondorioz.

Aeroenbolia, nitrogeno burbuilak odolean pilatzen direneko gaixotasuna da. Harkaitz Cano

Istripuaren ondorioz, **aeroenbolia** larri batek jota geratu zen. Harkaitz Cano

---

aeroespazial *izond* aeroespazioari dagokiona.

Oso gauza modernoa da, Konponketa jaunak lan egin ohi zuen zentro **aeroespazial** hori. Koro Navarro

Haizea zakar samar ibili zen Tanegashimako gune **aeroespazialean**, 22-29 kilometro orduko abiadura zuen, baina ez zen eragozpena izan satelitea behar bezala aireratzeko. Berria - Gaiak

Txinak sei alorretan jarri du indarra ikerkuntzaren alorrean aurrera egiteko: informazioaren teknologietan, bioteknologian, material berrien teknologian, abangoardioako eraikuntza teknologietan, aeronautikan eta jarduera **aeroespazialetan**. Berria - Gaiak

---

aeroespazio *iz* gure planetaren azaleratik 100 kilometrotara hasten den espazioa.

EADS **aeroespazioko** partzuergoak du Airbusen akzioen %80, eta BAE Systemsek %20. Berria - Ekonomia

Stephan Ulamec Alemaniako **Aeroespazio** Zentroko kidearen esanetan, egun, planeten lurrazala ikertzeko martxan jarritako proiektuak "ez dira nahikoak". Berria - Gaiak

---

aerofagia *iz* airea espasmodikoki irenstea.

Errituen bidez, **aerofagia**, sabeleko mina, umeen buruko zahia, zornatutako zauriak, sugeen hozkadak eta beste hainbat osasun arazo sendatzeko moduak filmatu zituen Laburuk. Berria - Kultura

---

aerofono *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi) izond* airearen bibrazio bidez soinua egiten duen musika tresna.

Horrela, lau "plaza" antolatu ditu: idiofonoak, menbrafonoak, kordofonoak eta **aerofonoak**. ETC-prentsa

Instrumentu gehienak beheko solairuan kokatuko dira eta jotzen diren moduaren arabera sailkatuko dira: idiofonoak, menbranofonoak, kordofonoak eta **aerofonoak**. ETC-prentsa

Eta etorri dira, birtuosoak: 4 Kontrabaxu, 6 biolontxelo, 8 altu, 20 biolin (9 bigarren, 10 lehen, eta solista bat), 12 **aerofono** (zehar flauta, oboe, tronboi, adar) eta 2 perkusio jole (2 metroko bonbo batekin!). ETC-prentsa

Bi aretotan daude banatuta: "Batean, **aerofonoak** edo haizezkoak eta menbranofonoak daude, eta, bestean, kordofonoak eta iriofonoak. ETC-prentsa

Leon Bilbaoren eszenak Euskal Herriko beste **aerofono** herrikoi bat aurkezten digu: alboka. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haize instrumentuak (**aerofonoak**) aire gorputz bat bibraraztean hotsa ematen duten soinu-tresnak dira. ETC-entziklopedia

Antzinako tronpa hauen herentzia, Erdi Aroan egin ziren metalezko **aerofonoak** dira, tronpeta eta sakabutxeak bezala, azken hauek, tronboiaren aurrekariak. ETC-entziklopedia

Txanbela dultzainaren antzeko Euskal Herriko musika tresna **aerofono** tradizional bat da, bereziki Zuberoan jo izan dena. ETC-entziklopedia

Haize-instrumentuei **aerofono** ere deitzen zaie. ETC-entziklopedia

---

aerogel *iz* gel batetik eratorririko gai sintetikoa, porotsua eta guztiz arina, gelaren osagai likidoa gas batez ordezkatuz lortzen dena.

Kometak atzean utzitako arrastoaren laginak "ukiturik egin gabe" jasotzeko, berriz, **aerogelez** hondarraren edo kristalaren antzeko silizio dioxidoa egindako erraketa itxurako sare bat erabili du espazio kapsulak. Berria - Gaiak

Aerogela erabili ohi du NASAk izarrarteko hautsa "aldatu gabe" jasotzeko. Berria - Gaiak

Aerogela, berez, airea da %99, eta ezagutzen den solidorik "arinena" da. Berria - Gaiak

---

aerogeneradore *iz* haizearen indarrak mugiarazten duen generadore elektrikoa.

12 milioi euroren truke, 8,5 MWko hamar **aerogeneradore** jarriko ditu Fuerstenauko parke eolikoan, eta beste hiru Kugelbergen. Berria - Ekonomia

Joan den uztailean 20 MWko potentziako beste **aerogeneradore** parke bat saldu zion Gamesak Endesari. Berria - Ekonomia

Japoniako Eurus Energy konpainiari 31 **aerogeneradore** salduko dizkiola. Berria - Ekonomia

---

aeroklub *(corpusean ez dago; ETCn **41** agerraldi) iz* aire kiroletarako sortutako elkartea.

Atzo 46. eta 47. orrialdeetan argitaratutako erreportajean, Altsasuko hegazkina erosi duen **aeroklubaren** izena Heraclio Fournier dela oker argitaratu zuen Berriak; **aeroklubaren** izena Heraclio Alfaro da. ETC-prentsa

Bere ametsa hegan egitea zenez, 20 urte zituela **aeroklub** batean izena eman eta oso emaitza onak lortu zituen. ETC-prentsa

Autoetan auto-stop eginez heldu nintzen Donostiara, eta, han ere hegazkin pribatu gutxi zegoenez, Bilbora etorri nintzen, hemen badagoelako **aeroklub** bat eta badirelako pilotu pribatu gutxi batzuk. ETC-prentsa

Nagusiki Bilbotik ebakuatutako errefuxiatuen artetik, bederatzi lagun Moskuko **aeroklub** batean sartu ziren 1940an, hegazkinlaritzaren lehen ikasgaiak hartzera. ETC-entziklopedia

Aeroklubean aire-kirolak praktika daitezke; adibidez; parapente eta delta hegala. ETC-entziklopedia

Urte horretan, Saratov hiriko **aeroklubean** izena eman zuen bolondres bezala, asteburuetan, eta dirua irabazten zuen Volga ibaiko kaian. ETC-entziklopedia

---

aerolabaingailu *iz* azpian duen azaleraren kontra aire turrusta bat jaurtiz mugitzen den ibilgailua.

Eta horrelaxe egin zuen Erniek, Nicki haize emanez **aerolabaingailu** beltz isil bat balitz bezala. Iñaki Mendiguren

---

aerolito *iz* batez ere silikatoz osaturiko meteoritoa.

Bat-batean, beste askotan gertatu ohi zitzaion bezala, Edmundo de Oryren bi **aerolito** etorri zitzaizkion gogora. Karlos Linazasoro

Primerako aldartean jaiki zen Brown jauna, txistuka esango genuke, eta leihoko beira leuna bustitzen zuen euriak beste **aerolito** bat ekarri zion mihi idorrera: [...]. Karlos Linazasoro

Gizon etorri berriak eta Fontainek hitzik esan gabe trukatzen dituzte maleta eta karpeta: batean dirua dago; bestean, marrazki eder batzuk, ***aerolitoak*** izenburupean, eta, hauen tartean, aspaldi desagertu ziren plano haiek. Karlos Linazasoro

---

aerometro *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* airearen eta beste gasen dentsitatea neurtzeko gailua.

Matematika, geometria, logika, filosofia, mekanika eta astronomia irakatsi zuen, hogei urtez, Alejandriako Museoan, eta astrolabioa, esfera leuna eta **aerometroa** asmatu zituen. ETC-prentsa

---

aeromodelismo *iz* aeromodeloak egiteko teknika eta jarduera.

Egia zen asteburuetan-eta **aeromodelismoa** praktikatzen nuela, eta horrek esplika zezakeela paperezko hegazkina leihotik sartzen ari zeneko irudiaren miraria. Joan Mari Irigoien

Sara ere, horrela, **aeromodelismora** zaletu zen. Joan Mari Irigoien

Sarreran iragarki bat dago, letra gorriz pintatutako ohol zuri batean: **Aeromodelismoko** pista. Joan Mari Irigoien

---

aeromodelo *iz* hegazkin edo kideko baten modelo tamaina txikikoa.

Gero, hura eseri, eta nik hegan jarri nuen **aeromodeloa**. Joan Mari Irigoien

Halarik ere, urduri baino urduriago nengoen arren, ongi lurrerarazi nuen **aeromodeloa**. Joan Mari Irigoien

Sarak esan zidan bezala, eserleku bakarreko **aeromodeloa** saldu, eta bi eserlekukoa erosi nuen, eserlekuetan panpinatxo bana ipintzen nuela, gizonezkoa eta emakumezkoa, osaba Lazaroren eta Sararen irudira. Joan Mari Irigoien

---

aeromodelozale *iz* aeromodeloen zalea den pertsona.

Puntu horretatik hurbil, Txoritokietarako bideari ekinez gero eta Zamalbiderakoa atzean utzita, bada eskuin aldera zelai zabal bat: **aeromodelozaleen** biltokia da, nolabait esatearren. Joan Mari Irigoien

---

aeronauta *iz* aireontzi bat, eskuarki globo aeronautiko bat, pilotatzen edo tripulatzen duen duen pertsona.

Boninori **aeronauta** -astronauta naziek eginiko eskuerakutsia ezin zen uranioa izan. Juan Garzia

---

aeronautika *(orobat **airenautika** g.er.) iz* airetiko nabigazioaren teknikaren azterketa eta ikerketa.

Txinak sei alorretan jarri du indarra ikerkuntzaren alorrean aurrera egiteko: informazioaren teknologietan, bioteknologian, material berrien teknologian, abangoardioako eraikuntza teknologietan, **aeronautikan** eta jarduera aeroespazialetan. Berria - Gaiak

Ingeniaritza **aeronautikako** ikasketak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Espazioko **aeronautika**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kuartel handiaren ondoan, ITP **aeronautika** enpresa taldeari loturik dagoen lantegi bat dago: Precicast Bilbao. Berria - Euskal Herria

Aeronautika industria militarra. Berria - Euskal Herria

Euskal **aeronautika** sektoreak 4.350 lanpostu biltzen zituen 2003aren amaieran. Berria - Harian

Miñaoko **Aeronautika** Teknologien Zentroan A380ko piezak ere probatu dira. Berria - Harian

Horrek guztiak **aeronautika** sarea mantentzen lagundu du, eta hornitzaile gehiago garatzen. Berria - Harian

Sektoreko euskal enpresa nagusiak **Aeronautika** Clusterrean biltzen dira, elkarlanerako. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aeronautika eta** (3); **aeronautika saila** (5); **eta aeronautika** (4)

---

aeronautiko *izond* aeronautikari dagokiona.

Sektore **aeronautikoan** eskaintzan eta eskaeran sortzen diren gorabeherak gainditu ahal izateko. Berria - Ekonomia

Gamesa atal **aeronautikoaren** salmenta erabakitzen ari da, eta GPAko lantokia da ituna ixteke duen bakarra. Berria - Ekonomia

Egitura **aeronautikoen** diseinuan eta fabrikazioan Espainian duen aitzindaritza finkatzea da helburua, aeronautika programa berrietan parte hartzeko dauden aukera guztiak profitatuz. Berria - Ekonomia

Energiak eta atal eolikoak ematen dizkioten etekinak eta sail **aeronautikoaren** gorabeherak aztertu eta gero, aireko negozioari agur esango dio aurten konpainiak. Berria - Ekonomia

Gasteizko jaietako lehenengo egunean Espainiako Armadaren erakustaldi **aeronautiko** bat dago iragarrita. Berria - Euskal Herria

Pentsa daiteke urruntasunak ez duela zertan izan eragozpen handia: ingeniari **aeronautiko** batek ez du denbora handirik igaro beharrik bidaiari gisa, eta ontzigile batek ederki asko egin dezake bere lana lehorrean. Irene Aldasoro

Berarekin zebilen tipoa ingeniari **aeronautiko** langabe bat zen, Alkoholzale Anonimoetan ezagutu zuena. Koro Navarro

Aire Armadako ingeniari **aeronautikoen** agindupean sortuak eta eraikiak izan dira Espainiako arma fabrika garrantzitsuenean. Berria - Euskal Herria

Espainiako hiriburuko Unibertsitateko Politeknikoan lortu zuen Ingeniari **Aeronautiko** titulua, 1986an. Berria - Gaiak

Zeren zeharoko idiota baldin banaiz, injineru **aeronautiko** egingo bainaiz, eta bestela berriz, filosofo. Iñaki Segurola

Injinerutza **aeronautikoko** lizentziaturaz gain, entrenamendu militarrak eta diziplina gogorrak urrearen pare jartzen zuen Agentziaren begietan. Fernando Morillo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ingeniari aeronautiko** (3); **injineru aeronautiko** (3)

---

aeroneska *iz* azafata.

Beste kopa bat xanpaina eskatu nion **aeroneskari** eta edan ondoren, begiak itxita geratu nintzen neure aldaketaren gozamenean. Hasier Etxeberria

---

aeroplano *(ETCn **63** agerraldi; orobat **aeroplanu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **aireplano**, **hegazkin** eta **aireko** agertzen dira)* *iz* hegazkina. ik **aireplano**.

Eta hiru urte geroago, 1903ko abenduaren 17an, Wright anaiek **aeroplanoa** asmatu zuten: lehenbiziko saioan, goizeko hamar eta erdietan, Orville atera zen Kitty Hawk izeneko hondartzatik, North Carolinan, 12 segundo egon zen airean, eta 36 metro egin zituen. Pello Salaburu

Maila hartako film dokumentalen atalean, Jon Granderen *Lekeitioko* ***aeroplanua*** -ri eman diote lehen saria. Berria - Kultura

---

aeroportu *iz* aireportua.

-Badakizu, zerbait problema baldin baduzu, **aeroportuan** dei nazu hunat." Bon. Menane Oxandabaratz

Erakusketa bat, ikusketa, teknika hauetaz egina izanen da helduden ortzegun aratsalde guzian, maiatz hunen 24 ean nahi dutenendako Itsasuko Urzumu deitzen dugun **Aeroportuan** . Herria

---

aerosol 1 *iz* ontzi batean presiopean metatzen den isurkari edo solido baten partikulen suspentsioa. ik **esprai**.

Ertzaintzaren arabera, bi **aerosolekin** eta gasolina poto batekin zegoen egina lehergailua. Berria - Euskal Herria

Haurdunaldian zein haurraren lehengo hilabeteetan etxean **aerosolak** erabiltzeak umeei zein amei kalte egiten dietela ondorioztatu du Erresuma Batuan eginiko ikerketa batek. Berria - Gaiak

Aerosolak gasa askatzen du eta gas horrek zulatzen du sabaia. Joseba Sarrionandia

Bost hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten, Amsterdamgo museoan Malevitxen koadro bat **aerosolekin** margotzeagatik. Berria - Kultura

Atxiloketak eragindako estresak, eta guardia zibilen kolpeek eta **aerosol** narritagarriak bihotzekoa eragin zioten. Berria - Mundua

Emakume musulmanak Internet Card txartelaren bitartez bost mila euro inguru gastatu eta gero irten zirenean, saltzaile txit dotoreak, **aerosol** lurrin arruntez girotu zuen denda guztia, gure begien aurrean. Joxan Elosegi

Planetako atmosfera zehaztasun handiz ikertuko dute; hodeietan jarriko dute arreta, eta klima aldaketa eragiten duten **aerosol** partikula txikietan. Berria - Gaiak

Ez zaie ilea haizearekin mugitzea gustatzen eta ilea gogortzeko erabiltzen dituzten laka **aerosol** horiek egiten dituzte, portugesak dioenez, ozonoko zuloak. Joseba Sarrionandia

2 *aerosol atmosferiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Aerosola (edo **aerosol atmosferikoa**) atmosferan une eta toki jakin batean agertzen diren gasen eta materia partikulatuaren multzoaren nahasketari deritzo. ETC-entziklopedia

---

aerosorgailu *iz* haizearen indarraz baliatzen den elektrizitate sorgailua.

Gamesa Eolica enpresak 28 **aerosorgailu** jarriko ditu Siziliako Carlentini parke eolikoan, Italian Vento Power Corporation (IVPC) enpresarekin lortutako akordioari esker. Berria - Ekonomia

Parke eolikoko **aerosorgailuak** bezperan Otsabiotik baino askoz handiago ikusi genituen. Juan Luis Zabala

Agian, etorkizunean normal-normala irudituko zaigu teilatuetara begiratu eta **aerosorgailuak** martxan ikustea. Berria - Gaiak

Itsasoko parke eolikoek lurrekoek baino kalte txikiagoa eragiten dute erakunde ekologistaren arabera: **"Aerosorgailuek** zarata egiten dute, eta, gainera, ezin da haien inguruan ezer eraiki". Berria - Gaiak

Proiektua gauzatzen badute, Orduntekoa izango da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako parke eolikorik handiena: mendilerroko12 kilometroko ibilbidean 60 **aerosorgailu** ipini nahi dituzte, 45 eta 65 metro arteko garaierakoak. Berria - Euskal Herria

Aerosorgailuen kanpoaldeko pareta kurbatu zurietan jendeak utzitako idatzizko arrastoak zeuden: ETAren aldeko zein aurkako aldarrikapenak, maitasun aitormenak, lizunkeria gordinak... Juan Luis Zabala

---

aerostatika *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* mekanikaz mintzatuz, geldirik dauden gasak aztertzen dituen adarra.

Gizonarentzat agerpenen arrazoiak asmatzeko duen kontzientzia ezeztatzea txoriarentzat hegoetan konfiantza izateari uko egin eta habia utzi nahi ez izatea bezain zozoa izango litzateke, txori txiki hark Babinet irakurri duelako eta hidrodinamika arrazoiengatik **aerostatika** ezinezkotzat jo duelako. ETC-literatura, saiakera

---

aerostatiko 1 *izond* aerostatoen bidezko nabigazioari dagokiona.

1783ko iraileko lehenengo egunetan, bere liburutegia sutan kiskali eta handik bi urtera, zorabialdiak izan zituen Euler-ek, baina, hala eta guztiz ere, globo aerost... **aerostatikoen** mugimendua kalkulatzen aritu zen. Jon Muñoz

Hainbeste maite zituen bidaia **aerostatiko** bat du ardatz eta Verne karakterizatu duten emozioa eta indarra ditu. Berria - Harian

2 *baloi aerostatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **47** agerraldi)*

Baloi aerostatiko edo globo aerostatikoa forma gutxi gorabehera esfera esferikoa duen aerostato bat da, airean inguruak baino dentsitate eta pisu txikiagoa izateagatik flotatu egiten duen gailu bat alegia. ETC-entziklopedia

AEDko familia asmotsua, zira irazgaitzak elkarrekin josita egindako **baloi aerostatiko** batekin muga hegan igaro zuena, Estoniako senar-emazteak, gorputza antzarakoipez igurtzi eta Finlandiaraino igerian ehun kilometro egin zituztenak. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, orain arte erdietsi ez dena, horregatik ez dela inoiz erdietsiko pentsatzeak, ez du inoiz asmo pragmatiko edo tekniko bat -esate baterako, **baloi aerostatikoen** bidez airean bidaiatzeko asmoa- bertan behera uztea zilegitzen. ETC-literatura, saiakera

Atzo urtero Getxoko jazzaldia hastear dagoela iragartzen duen **baloi aerostatikoa** aireratzeko modurik ez zuten izan antolatzaileek. ETC-prentsa

Eguzkitan konkortxoetako airea berotu egiten da, **baloi aerostatiko** baten gisan gora egiten du eta aire! paseora. ETC-prentsa

Bertzeak bertze, bi kamera ezarri nahi dituzte; bata ur azpikoa, kroskoari atxikia, eta bertzea, **baloi aerostatiko** bati lotua. ETC-prentsa

Eusko Jaurlaritza ospakizunak prestatzen ari da: **baloi aerostatikoak** , montgolfierrak alegia, izango ditugu hiriburuetako zeruetan Estatutua bere lekuan jartzeko, hor, goiko esferetan. ETC-prentsa

XIX. mendearen bukaeran hasi ziren lehen prototipoak, **baloi aerostatikoetatik** abiatuta. ETC-prentsa

Frantziako Alsazian, parke tematiko zahar baten gainean beste bat ireki behar du **baloi aerostatikoen** enpresa batek, Antoine de Saint-Exupéryren Printze Txikia pertsonaiari eskainia. ETC-prentsa

3 *globo aerostatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **73** agerraldi)*

"Ni bezalakoa zara, harro egon naiteke zutaz", esango zion, bere **globo aerostatiko** itxurako margarita erraldoia zerurantz altxatuz, kaio, pikero eta albatros zaratatsuen artean, bere arroketako aterpetxe atzemanezinean, bere eguzkipeko ezkutalekuan. ETC-literatura, saiakera

Montgolfier markako zortzi **globo aerostatiko** izan zituen eta lokomotorez ibiltzen ziren tren txiki batzuk ere bai. ETC-literatura, saiakera

Lasta astun bati jaregin ondoren gezi bat bezain bizkor zeruratzen den **globo aerostatiko** bat bezala sentitu nintzen. ETC-literatura, saiakera

Haien buru gainean, zerutik eskegita bezala, **globo aerostatiko** bat, masoien apaingarriz betea. ETC-literatura, saiakera

Iragarkietako batean, **globo aerostatiko** bat agertu zen, sokek lurrera kateatuta eta otarre handiaren inguruan zintzilik lasta-zakuak. ETC-literatura, saiakera

Koloretako likidodun ontzi bihurri ñimiñoak, portzelanazko gizaki edo animaliak izan litezkeen figuratxoak, eta horror vacui haren erdian han-hemenka nabarmentzen diren **globo aerostatikoen** miniaturak. ETC-literatura, saiakera

Horixe gertatu zen Lapurdiko hiriburuan **globo aerostatiko** bat, hiru orduko betealdiaren ondotik, udaletxeko plazatik geldo bezain miresgarriro altxatzen hasi zenean. ETC-literatura, saiakera

Energia garbia orain! zioen **globo aerostatiko** handi bat aireratu zuten han. ETC-prentsa

Ordea, **globo aerostatikoa** zeruan handi, harro eta gizen ageri da beti, hori ez da ahazten. ETC-prentsa

Hori izango da aurtengo berrikuntza ikusgarrienetako bat eta, horretarako, **globo aerostatiko** bat ekarriko dute herrira. ETC-prentsa

Gesaltzako fanfarrea ere ibiliko da, kalerik kale, inguruak alaitzen, eta ausartenak **globo aerostatikora** igoko dira bitartean. ETC-prentsa

Airetiko lehen argazkiak **globo aerostatiko** batetik hartu ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehen aerodromoak baloi aerostatiko edo **globo aerostatikoen** hegaldietarako eraiki ziren. ETC-entziklopedia

Horixe da, hain zuzen "baloi aerostatiko" edo "**globo aerostatikoen**" kasua. ETC-entziklopedia

Dimentsio hauekin hobeto jabetu gaitezke kontuan hartzen badugu 2003 urtean **globo aerostatiko** bat hegaldatu zela La Vernan, barruan lau pertsona zituela. ETC-entziklopedia

1785 eta 1786 urteetan Norfolko Quantrell hiriaren ondoan zenbait **globo aerostatiko** aireratu zituzten, aeronautika aroa hasiz. ETC-entziklopedia

---

aerostato *iz* airea baino arinago den gas batez beteriko aireontzia.

Aerostato batean zeruan gora doanari halaxe desagertzen zaizkio begien bistatik behean utzi duen herriko zarama eta zikinkeria, eta itsusia eder bilakatzen zaio. Jose Morales

Aerostatoak atmosferan burrunbatzen zuen. Berria - Harian

---

aerotaxi *iz* alokairuzko hegazkin arin pilotuduna.

Sondikako aireportuan **aerotaxia** alokatu eta arratsaldeko zazpiak pasata Espainiako Kongresuan zen Juan Etxebarria Gangoiti UCDko diputatu bizkaitarra. Berria - Euskal Herria

---

aetz *izlag/iz* Aezkoakoa, Aezkoari dagokiona; Aezkoako biztanlea.

Garrüzeko goarnizioan berean, borrero **aetza**, haren alaba batekin ezkondu zen baleztari baztandarra eta Migel bera baizik ez ziren gelditzen Iba-etaz harata sortuak. Aingeru Epaltza

---

aezkera *iz* Aezkoako euskalkia.

Aezkeraz, esaterako, laurogei grabazio daude, baztaneraz ehun eta hemezortzi, goi nafarreran zazpiehun baino gehiago, zaraitzueraz hogeita hamar, eta Nafarroako gipuzkeraz, berriz, ehun eta laurogeita hamar. Berria - Kultura

---

aezkoar *iz* Aezkoako biztanlea.

Geroztik hemen bizi naiz, auzo ditudala, hor baztandarrak Izpegitik, han **Aezkoarrak** Ibañetatik. Herria

---

afaite ik **afarite**.

---

afal 1 *afari* izenak hitz elkartuetan hartzen duen forma.

Badakite sukaldera eraman eta litro bat esne eta labean gelditu diren **afal**-hondarrak emango dizkiedala. Gotzon Garate

Egunean zehar zikinduak garbitu eta neure burua ere zertxobait txukuntzen ematen nuenez, **afal** garaia geratzen zitzaidan libre. Xabier Mendiguren Elizegi

Ilunabarrean, itzultzen ziren, eta **afal** ordua arte plazan geratzen ziren Ligugnanan, belarretan edo eskailera mailatan eseri, eta berriketan. Josu Zabaleta

Afal ordura arte libre. Iñaki Iñurrieta

Zeren, oker ez banago, Mattinek errezitatu behar baitio dukeari, **afal** aitzinean, oda itsusi hori, hi izan haiteke, Joanes, festako protagonista. Karlos Linazasoro

Memento hunkigarriena orobat, larunbat aratsean, **afal** aintzin, esku-hustako finalaren ondotik, pilotari guziak bildurik bost ehun bat lagunen aintzinean, Panpi Laduche-k Anne Etchegoyen-ekin eman duelarik "Agur jaunak" trinketaren erdian! Herria

-Hona sartu naizenean **afal** aurreko tragoa hartzeko asmoz sartu naun. Migel Angel Mintegi

Asteartean gertatu zen aurrenekoa: dutxan nengoen, **afal** aurretik, amak atea behin eta berriz jo zuenean. Juan Kruz Igerabide

Afal ostean, ofizialek hiriko damekin dantza egiten zuten bitartean, Prusiatik ekarritako doinuak entzunez, Antonov eta biok tabako turkoa erretzera atera ginen harresietara. Felipe Juaristi

Antza denez, Londresen **afal**-osteko entretenimendu modakoa bihurtzen ari omen da teleskopiotik behatzea. Berria - Gaiak

Kapitain bat, hatzak kobrezko bitxiz kargatua, eta bi galai, soinlabur lasaiz jantziak, bisitan etortzen zitzaizkion **afal** ondoan. Juan Garzia

Egun berean, **afal** ondoren, bere espetxe berrian ikustera etorri zitzaion. Juan Garzia

Afal-ondoko kalapita horrek baino gehiago mintzen du senargaia ez zuela ongi ezagutzen ohartzeak eta oraino gogoeta ilun gehiago gordetzen diola pentsatzeak. Eneko Bidegain

Afal tenorean nehor ez zen oraino handik jinik ehun bat ginen block-ean. Marzel Etxehandi

Perez hamaika preso sozialen artean jipoitu zuten **afal** ostetik ziegara zihoanean, funtzionarioen begiradapean. Berria - Harian

Deitzeko **afal** ostera arte itxoitea erabaki bazuen ere, bederatzietarako afaldurik egongo zatekeen. Oskar Arana

Benito Lertxundik urte askotan izan die beldurra **afal** ondoreneko orduei, erabat gautiarra zen garaietan. Pako Aristi

2 ***afal ordu*** ik **afalordu**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

afal aintzin (3); **afal aitzin** (3); **afal aurreko** (3); **afal aurretik** (8); **afal garaian** (3); **afal ondoan** (22); **afal ondoren** (19); **afal ostean** (4); **eta afal** (7); **zuen afal** (3)

afalaitzin *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* **1** *iz* afalaurrea.

Bederatziak aldera, **afalaitzinean**, Janire Marlyngen gutuna: "Barka, doktore, baina ezin izan dugu elkarrizketa koordinatu ('koordinatu' hitza ibili du), badakizu, garraioen greba eta ezin izan dugu deusik ere zehaztu...". ETC-literatura, saiakera

Afalaitzinean halako geziak irentsi ondoren nire digestioa eta loaldia ez ziren onak izaten beti. ETC-literatura, saiakera

• **2** *adlag* afalaurrean.

Afalaintzin plazer iten du apeitifak '**afalaitzin** plazer egiten du aperitiboak'. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

afalaurre *(orobat **afal aurre**) iz* afaldu aurreko denbora.

Afalaurrea zen telefonora hots egin ziotenean. Joxemari Iturralde

Kontenplazio hau behin gauerdian egingo da, eta goizean berriz, eta haren gainean bi berriztatze, meza orduan eta bezperatakoan, eta **afalaurrean** ekarri bost zentzumenak haren gainera. Patxi Altuna

Itxaroten luzaro egona zela pentsatzen ari zen eta behar baino gehiago edan zuela **afalaurrean**, moxkor antz txikia hartzen baitzion. nekaldian gehiago laburtu nahi duenak gogora beza gauerdian afaria, goizean baratzea, meza garaian Anasen etxea, bezpera garaian Kaifasen etxea, **afalaurreko** orduaren ordez Pilatosen etxea. Aitor Arana

Bekatua egin eta gero bekatutik disfrutatzea baitator, egongelan eseri zen **afalaurreko** tragoxka hartzen. Unai Iturriaga

Bodwin jaunak zeregin batzuk zeuzkan hiriaren mugan, eta Janeyri esan zion neska berriaren bila pasatuko zela **afalaurretik**. Anton Garikano

Goizean egitea, ordea, kontenplazio bat, eta bestea meza orduan, eta bestea bazkalaurrean, eta haien berriztatze bat bezperetako orduan, eta gero **afalaurretik** zentzuak ezarri. Patxi Altuna

---

afalburu *iz* afaria.

Gero, **afalburuen** aitzineko platera jan ondoren, asmatu zerbait, tripak nahastu zaizkiala-edo, eta hoa ene kakategirat. Joan Mari Irigoien

Jan genuen arkumea, zeina baitzen **afalburuen** aitzineko platera, eta, osabari hitz eman bezala, haren kakategirantz abiatu nintzen. Joan Mari Irigoien

---

afaldar *iz* afaltiarra.

Lily **afaldar** batengandik bestearengana joaten zen, patata bero irintsu batzuk, eskuzapi zuri batean bilduak, plater batean zituela. Irene Aldasoro

Afaldarrak, gizonak bereziki, aztertzeko nuen arretagatik, asper-asper eginda nengoen. Jon Muñoz

Inork ez zion galdera horri erantzun eta Mary Janek atzera benetako operara bideratu zituen **afaldarrak**. Irene Aldasoro

Garrasika hasi ziren **afaldarrak**: "Erregela eta konpasa! Jon Muñoz

Afaldarrek, orduan, Mount Melleray hartu zuten hizketagai: zein garbia eta osasungarria zen hango airea, zein adeitsuak fraideak eta nola ez zieten inoiz penike bat ere eskatzen egoiliarrei. Irene Aldasoro

Oloroeko kaleetan zehar dabil, bada, gure gizona: hitzordura agertu ez zaion **afaldarraren** bila, jakina. Anjel Lertxundi

Orduan izan zuen **afaldarretako** batek, Isidora zeozertara sukaldera ezkutatzearekin batera azken patata aleak ehizatzen eta ardiki saltsatan bustitzen ari zirelarik, bertsolari etorria, listo irteera: [...]. Pako Aristi

---

afaldu *(ETCn **9.177** agerraldi)*, afal(du), afaltzen **1** du *ad* iluntzeko otordua egin.

Gosaldu, bazkaldu eta **afaldu**, hiru otorduak egin genituen. Inazio Mujika Iraola

Gau hartan, Arturrek ez zuen **afaldu**, ez edan, ez lorik egin. Juan Kruz Igerabide

Luzaz dudatu nuen: barurik egon ala **afaldu**...? Daniel Landart

Bentaria etorri zen neskameekin handizkiek zer **afaldu** nahi zuten galdezka, "zer **afaldu** nahi dute beroriek?" esaka. Felipe Juaristi

Ez nuen **afaldu** nahi izaten. Koldo Izagirre

Ondotik, nahi luketenek eliza ondoko gela batean **afal** dezakete: irrisa, ogia eta ura. Herria

Berton **afal** nezakeen noski, baina, horren ordez, okela ona jatea erabaki nuen, Doualan horretarako zegoen leku bakarrenetarikoan. Xabier Montoia

Soinujoleak bere lagunekin **afal** zezakeen bere lanaren ondoren, nahiz desordua izan, nahiz jende gehiena alde eginda egon eta zerbitzu gehienak, kafetegia barne, itxita. Bernardo Atxaga

Afarirako, sofan ipini genuen, kuxin batzuekin, erdi etzanik, gurekin batera **afal** zezan. Juan Kruz Igerabide

Aleman handi bat zen, bizar-gorria, bazkaldu eta **afaldu** bere gelan egiten zuena, eta inorekin hitz egiten ez zuena. Josu Zabaleta

Semearenean **afaldu** behar dut, gaur bere urtebetetzea da eta. Aritz Gorrotxategi

Atzo bertan poloniar batekin **afaldu** nuen, eta gauza bera bota zidan: alemanek bere herria bonbardatu genuela. Ramon Saizarbitoria

Elkarrekin **afalduko** dugu. Aitor Arana

-Nahi al zenuke hauetako egunen batean emaztea eta biokin **afaldu**? Lopez de Arana

Zer ordutan **afalduko** dugu, jakin badaiteke? Aitor Arana

Nire etxean dagoenak **afaldu** egin behar du! Bernardo Atxaga

Afaldu ere ez dut egin. Txillardegi

Luzaideko dorrean behar nuen **afaldu** eta askaldu. Michel Oronoz

Gartzia ostatuan tripotxa plater bat **afaldu** eta zinera. Iñaki Zabaleta

Afaldu eta lotara. Pedro Alberdi

Antoniorekin zopa ederra **afaldu** nuen iluntzeko lanak bukatu ostean, gasezko lanpararen argitan. Aitor Arana

Afaldutakoan, Lumen eta Abnerren programaren ondoren, kalea gurutzatu, botikara sartu eta Smithers andreari deitu nion. Fernando Rey

2 (adizlagunekin)

Oraintxe **afaldu** dut, bapo-bapo nago, laster naiz etxean! Pako Aristi

Egun hartan, Florentek goiz **afaldu** zuen Lebigreren tabernan. Karlos Zabala

-Berandu **afaldu** dugu, eta bueltatxo bat ematen ari ginen -esan zuen atzerritarrak-. Koro Navarro

Duela gutxi **afaldu** dugu mahaitxo biribil baten inguruan, eta orain berriketan ari gara. Jon Arretxe

Autotektonikatik gintonikara urrats bat baizik ez eta, ederki **afaldu** genuen, lagunaren sukaldetik trinkili-trankala edariek eragin burtzoroarekin atera baldin banintzen ere. Itxaro Borda

Alai **afaldu** genuen, eta gero ama eta biok etxera itzuli ginen. Juan Kruz Igerabide

Koktel bat edango dugu, bakoitzak bana, eta gero kanpora joango gara, toki lasairen batera, goxo-goxo **afaldu** eta patxadaz hitz egitera. Mirentxu Larrañaga

Gero, arinki **afaldurik**, berriz gelarat joan ginenean, Elena berriz ere musuka lotu zitzaidan. Janbattitt Dirassar

Bapo **afaldu** zuten guztiek eta tia Pacak jaunari eskerrak ematen zizkion bitartean, padrek gitarra atera zuen eta Gabon gau luze eta zoriontsua izan zen hura. Jon Maia

Itsasoratzeko egunaren bezpera iritsi zen, eta gauez, asean eta betean **afaldu** ondoren, ez nuen kasik lorik egin. Joan Mari Irigoien

Afaldu berri, gizonetako batek musuzapia eraman zuen lepora eta, seinale bat izan balitz bezala, gainerako gizonezkoek ere beren musuzapiak eraman zituzten lepora, eta kantuan hasi ziren: "Maritxu, nora zoaz eder galant hori? Anjel Lertxundi

Zutik eta azkar **afaldu** dute, platerik zikindu gabe, zartaginetik bertatik. Harkaitz Cano

3 (bestelakoekin)

Gonbidatu egin ninduten, eta, **afaldu** gabe nengoenez, onartu egin nuen nahiz eta baratxuri zopa asko gustatu ez. Ramon Saizarbitoria

Osteratxoa egiteko ohitura zuen **afaldu** aurretik. Josu Landa

Afaldu bitartean, Josebak ez zuen bezperan hasitakoarekin jarraitu. Xabier Montoia

Hala erran dit, kezkatu antzo, **afaldu** ondoan: ez zekiat, ez zekiat, burua mugitu du ezker-eskuin. Xabier Montoia

Uztailaren 8an, bada, Martha Gellhorn, Ernest Hemingway eta Joris Ivens zinemagilea Newarkeko aireportuan bildu dira, handik Washingtonera hegan egin eta, Etxe Zurian **afaldu** ostean The Spanish Earth hantxe erakusteko Roosevelt senar-emazteei. Edorta Jimenez

Gero, **afaldu** ondoren, prestatu zidaten gelara igo nintzen. pentsatu du Mikelengana joango dela **afaldu** eta berehala. Josu Zabaleta

Nik ere nire gelara joan nahi nuke ba, **afaldu** baino lehen. Aitor Arana

• **4** da *ad ipar*

Biharamunean, hitz eman moldean, txinatar jatetxe batean **afaldu** ginen, sakez horditu, zerbitzariak lekutzeko momentua zela kopetaz seinalatu arte. Itxaro Borda

Kalonjeen erdian **afaldu** nintzan -anartean, Elur bere lagun berrien erdian zagon eta berehala haieri jarri zen, ni bezainbat ohoratua- denak eni so. Michel Oronoz

Senarra aurkeztuko dizut eta elkarrekin **afalduko** gara. Itxaro Borda

Baionako apezpikuarekin **afalduak** gira duela bulta bat. Piarres Xarriton

Ordu bete lehenago **afaldua** nintzen. Xabier Olarra

5 ***mahaipetik afaldu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Gure herriaren historiari gainbegiratu bat ematea bezalakorik ez dago jabetzeko zu bezalako idazle handiek **mahaipetik afaldu** behar izan dutela beti, boterearen babesean zeudenek diren eta gutizia onenak ahoratzen zituzten bitartean. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

afaldu aurretik (7); **afaldu behar** (14); **afaldu bitartean** (20); **afaldu dira** (3); **afaldu dugu** (7); **afaldu dut** (5); **afaldu dute** (3); **afaldu egin** (10); **afaldu egin behar** (3); **afaldu egin beharko** (3); **afaldu egiten** (4); **afaldu ere** (6); **afaldu eta** (50); **afaldu eta gero** (5); **afaldu eta lo** (4); **afaldu eta lotara** (3); **afaldu eta ohera** (3); **afaldu gabe** (14); **afaldu genuela** (3); **afaldu genuen** (23); **afaldu ginen** (3); **afaldu nahi** (20); **afaldu nahi izaten** (3); **afaldu naiz** (5); **afaldu nuen** (12); **afaldu ohi** (3); **afaldu ondoan** (5); **afaldu ondoren** (40); **afaldu ostean** (9); **afaldu zuen** (16); **afaldu zuten** (20); **afalduko du** (5); **afalduko dugu** (11); **afalduko dugula** (3); **afalduko dut** (4); **afalduko dute** (3); **afalduko duzu** (3); **afalduko genuela** (3); **afalduko genuke** (3); **afalduko zuten** (3); **bakarrik afaldu** (4); **bapo afaldu** (4); **bapo afalduta** (3); **bat afaldu** (3); **batean afaldu** (17); **batean afaldu eta** (4); **batean afaldu genuen** (4); **batean afaldu zuten** (3); **baten etxean afaldu** (5); **bazkaldu edo afaldu** (4); **bazkaldu eta afaldu** (4); **edo afaldu** (6); **elkarrekin afaldu** (17); **elkarrekin afaldu genuen** (4); **elkarrekin afalduko** (12); **elkarrekin afalduko dugu** (3); **en afaldu** (3); **ere afaldu** (3); **eta afaldu** (19); **eta afaldu bitartean** (4); **eta afaldu egin** (3); **eta afaldu ondoren** (3); **etxean afaldu** (15); **etxean afaldu zuen** (3); **etxean afalduko** (7); **etxean afalduko dut** (3); **ez nuen afaldu** (3); **ez zuen afaldu** (3); **ezer afaldu** (5); **gero afaldu** (4); **goiz afaldu** (5); **gurekin afaldu** (3); **hemen afaldu** (3); **jatetxe batean afaldu** (6); **non afaldu** (4); **nuen afaldu** (4); **ondo afaldu** (3); **ostatuan afaldu** (3); **pozik afaldu** (3); **taberna batean afaldu** (3); **zer afaldu** (10); **zer afaldu nahi** (3); **zerbait afaldu** (3); **zuen afaldu** (4)

---

afalgela *iz* afaltzen den gela.

Une hartan izeba Kate irten zen **afalgelatik**, kili-kolo, ia etsiak harturik eskuak bihurrika. Irene Aldasoro

Horren ondotik etorri ziren gorespen-oihuek **afalgelatik** kanpoko beste gonbidatu askorengan oihartzun egiten zuten eta behin eta berriro hasten ziren, Freddy Malins, bere sardexka jasorik, zeremonia-maisu zela. Irene Aldasoro

---

afalkide *iz* afariko kidea.

Hurrena **afalkide** bakoitzak bere etxean egin zuen esperimentua; azkar eta gogotsu desagertzen ziren patata frijituak mahaitik. Pako Aristi

Begiak beherantz eta apal ari zen hizketan, halako solasetarako ohiturarik ez, eta **afalkideei** bekoz beko begiratzeko losintxaz edo. Anjel Lertxundi

Gaztak ziren, baina Mattin, **afalkidearen** jakin-minaz jabetuta, honela mintzatu zitzaion: [...]. Martin Anso

---

afalmahai *iz* afaltzen den mahaia.

Adoregabetu egiten zuen pentsatzeak ezen han egongo zitzaiola, **afalmahaian**, bera hizketan ari zen bitartean, begi kritiko aztertzaile haiekin behetik gora begira. Irene Aldasoro

Gabrielek ozenki txalo jo zuen beste guztiekin batera abestiaren bukaeran, eta txalo ozenak heldu ziren **afalmahaitik** ere, nahiz ikusezin egon. Irene Aldasoro

Zenbatez atseginago zatekeen han egotea, **afalmahaian** baino! Irene Aldasoro

---

afalondo **1** *iz* afaldu ondoko denbora.

Afaria pasa da, **afalondoa** ere bai, bederatziak jo dute. Itziar Otegi

Neska gidari zela, **afalondoak** Bibliaren irakurketari eskainiak ziren. Aingeru Epaltza

Afalondoak ez zuen eragin txartel oso ttipi bat baizik, amoros zuhur hark niri igortzeko bidea kausitu zuena, eta nik erre egin nuena neure ohiturari jarraiki. Jon Muñoz

Afalondo hori aipatzen duen gutuna ez dugu kausitu. Jon Muñoz

Gurasoek, **afalondo** batean Marieren asmoak jakin zituztenean, ezezko borobila eman zioten. Iñaki Zabaleta

Etxeko salan ginen laurok, **afalondoan** telebista ikusten. Pedro Alberdi

Aratseko 8:30etan hasiko da lehen saioa afaldu aitzin, eta **afalondoan** eginen dute saio nagusia. Herria

Afalondoan Ikastetxetik irteteko baimena eman ziguten. Joseba Sarrionandia

Azterketa berezia, bazkalondoan eta **afalondoan**, egun honetako jardunen eta eranskinen gainean egindako nagitasunez eta akatsez egingo da. Patxi Altuna

Oro har, bai afalorduan bai **afalondoan**, bazkaritan baino hobeki sentitu naiz. Patxi Zubizarreta

-Esaion nire koinatuari **afalondoan** etortzeko. Anton Garikano

Egun hartan bertan, arratsean, **afalondoan**, Florent kanpora joan eta paseoan ibili zen aldi batez, merkatuaren estalpeko kaleetako batean barrena. Karlos Zabala

Gero, Santio menditik bueltan, **afalondoan**, amaren magalera igo, eta osabak esana kontatu nion. Joan Mari Irigoien

Inoiz ez bezala, etxe azpiko tabernara jaitsi zen kafea hartzera **afalondoan**. Koldo Izagirre

Bai Ameriketan meatzariek egiten zituzten **afalondoetan** eta bai Obabara itzuli ondorenean, hoteleko terrazan. Bernardo Atxaga

Aratseko 10 orenetara baigoatzi, badira oraino beranteko eskaintzak, hola nola **afalondoko** elgarretaratzea (afaldu ere behar baitzen) eta gauerdi buruz zerbaiten hartzeko manera. Herria

Biltzar nagusi baterako deialdia egitea erabaki zuten, **afalondorako**, jangela-egongelan. Jon Muñoz

Horretarako, antolatzaileetako bakoitzak bere bidea hautatzen du, txapelketako formatutik, **afalondokora**, taberna girokoa edo erdibidekoak proposatuz. Berria - Kultura

2 (izenondoekin)

Poliki hitz eginez **afalondo** atsegina izan genuen kafea hartu bitartean. Aitor Arana

Amaren etxean harekin eta Merteuil andrearekin iragan nuen **afalondo** eder hura. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **afalondo batean** (5); **afalondo osoan** (5); **eta afalondoan** (4)

---

afalordu *(orobat **afal ordu** g.er.) izond* afaltzeko ordua.

Eta, hala, heldu zen **afalordua**; joan nintzen, kontsolamendu harekin, afaltzerat. Joan Mari Irigoien

Solasean ari izan ginen hirurok **afalordua** arte. Jon Muñoz

Igurikitzen nuen emakume hura **afalorduan** berriz ikustea; baina ondoezik zela eta oheratua zela erranarazi zuen. Jon Muñoz

Hirugarren egunean, finean, **afalorduan**, historia harrigarri hura gertatu zitzaigun. joan ziren biak Ubarneko dama-damatxoenganat, itzuli ziren etxerat **afalordurako**, arrai eta alegera, eta, noiz eta afaltzen hasi baikinen, aitak erran zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

---

afaloste *(orobat **afal oste**) iz* afalondoa.

Segur aski gure bisitak luzatu egin zuen **afal ostea**, baina amaitu bezain pronto ohearen gozoa hartu zuen. Berria - Kirola

-Atzo gauean -esan zigun udazkeneko **afaloste** baten, sukaldean laurok elkarturik geundela-, zuek lotan goxo-goxo zeundeten bitartean, hausnartu eta hausnartu azkenean gai jeniala bururatu zitzaidan ipuin luze bat idazteko. Jon Arretxe

Nekatuarena egiten du eta, **afalostean**, bere logelara erretiratzen da. Oskar Arana

Afalostean oheratu egingo ziren, amodioa egingo zuten eta biharamunean Rekexok inoiz baino miserableago sentituko zuen bere burua gosaritan, Brezo berriz ere ea maite zuen galdezka hasiko zitzaionean. Joxemari Iturralde

Gauero **afalostean**, Woodek entrenatzera behartzen zuen talde osoa, eta, beraz, Harryk ez zuen ezertarako astirik quidditcharen eta eskolako lanen artean. Iñaki Mendiguren

Ate hurretik zihoala, lau lagun atera ziren, bi bikote algara bizian, **afalosteko** euforiaren menpe. Migel Angel Mintegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta afalostean** (6)

---

afaltegi **1** *iz* afaltzeko gela edo gunea. ik **afaltoki**.

Bide bazterreko ilaran, landarez estalitako **afaltegi** bati erreparatu zion Ruche jaunak. Jon Muñoz

Afaltegira abiatu zen Ruche jauna, don Ottavio utzirik. Jon Muñoz

2 Jesukristok bere ikasleekin azken afaria egin zuen gela.

BIGARREN KONTENPLAZIOA GOIZEAN **AFALTEGITIK** BARATZERAINO IZANGO DA. Patxi Altuna

---

afaltiar *iz* afaltzera biltzen diren lagunetako bakoitza.

Ebiakoitz gauan izan dira 210 **afaltiar** eta igandean 275 bazkaltiar. Herria

Afaria bukatu eta **afaltiarrak** erretiratzera zihoazenean. Joan Mari Irigoien

Paellak arrakasta handia ukan du eta berrehun bat **afaltiar** bildu dira. Herria

Zikiro bestan, joan den urtean baino **afaltiar** gehiago (500 bat hurbil). Herria

Ortziralean, zikiro jateak 800 **afaltiar** hurbil bildu ditu, giro onean. Herria

Zerbitzariak estalkia kendu zion zopa-ontziari; **afaltiar** guztiek mahaira hurbildu zituzten aulkiak, eta zopari ekin zioten. Jose Morales

Kantuan segitzen zuten **afaltiarrek**, baina Norak ez zuen haizearen ulua beste deus buruan. Anjel Lertxundi

Sonataren azken notetako oihartzunak artean airean, sekulako txalo zaparradaz saritu zuten **afaltiarrek** Mathilderen saioa. Anjel Lertxundi

Markesa zen, **afaltiarren** artean, ehizaldi hartan parte hartu ez zuen bakarra. Josu Zabaleta

Libre samar baitzara, eta alkoholaren onginahiak **afaltiarretara** fruituz oparo den zuhaitz baten gisa makurrarazten baitzaitu halakoetan. Josu Zabaleta

Lau **afaltiarrentzat** dago prestatuta mahaia, mahai-tresnarik onenekin; kandelak ere badira piztuta. Segidan, beste **afaltiar** gonbidatuek nork bere etxera egin zuten eta bakarrik geratu ziren Sara eta Emmanuel. Oskar Arana

Kontzertu-areto bateko aditu jendeari ari zitzaiola zirudien, eta ez ehiza-gela itxurako hartan bilduriko **afaltiar** urri eta erdi ezagunei. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **afaltiar bildu** (5); **afaltiar bildu dira** (3); **bat afaltiar** (6); **ehun bat afaltiar** (3); **zuten afaltiarrek** (4)

---

afaltoki *iz* afaltzeko prestaturiko tokia. ik **afaltegi**.

Afaltokietarantz abiatu ziren Jauregi Berriko gonbidatuak. Karlos Zabala

Toki apal baina atsegin bat neukan pentsatua, ez **afaltoki** asko ezagutzen nituelako baizik lankideen ospakizun batean haraxe joan ginelako. Xabier Mendiguren Elizegi

Afaltoki baino gehiago eliza bat zirudien eta jendeak burumakur dastatzen zituen plateretako jaki urriak, tarteka, eskerrak emanez bezala, begiak zerurantz itzuli eta buruarekin men eginez. Joxean Agirre

---

afan *iz* ahalegina, grina.

Hor bai sortzen dela afizioa eta **afana** eta enpeinu ezin baztertua...! Pello Zabala

Hor bai sortzen dela **afana** eta enpeinu ezin baztertua! Patziku Perurena

Halako **afana** zeukan aitak guk ikasteko! Arantxa Iturbe

Madden Viktor Runeberg-en departamentuan egoteak esan nahi zuen noski han amaitzen zirela gure **afan** guztiak eta -baina horrek oso bigarren mailako kontua zirudien, edo hala iruditu behar zitzaidan- gure bizitzak orobat. Juan Garzia

Alde nabarmen bat dago pentsaeraren zera hartatik maparekiko **afan** honetara: han euskara ezinbestekoa zen, baina oraingo eromen edo laineza kartografiko, onomastiko eta toponimiko honetan ez, batere ez. Iñaki Segurola

Vitruvioren tratatuak sintesi guztiz pertsonala egiten du **afan** kulturalista orokorren eta diskurtso tekniko eta espezifikoki profesionalak bilduz. Santiago Iruretagoiena

---

afantsu *izond* afanez betea.

Zenbat eta misterio barregarri horrek jendearen adimena gehiago harritu, orduan eta ahalegin handiagoa jarriko du **afantsu** horrek denek ikus dezaten zein onuragarria den horretan sinestea... eta zein arriskutsua ez sinestea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

afar *(corpusean ez dago; ETCn **32** agerraldi) izlag/iz* Afarrekoa, Afarri dagokiona; Afarreko biztanlea.

Egun batzuk mendian pasa ondoren, bazen garaia **afarren** lurraldean sartzeko; sabanen, gameluen eta kalashnikoven eremua. ETC-prentsa

Ekonomiari dagokionez, Brasileko kapaioak ehizatik bizi dira, Etiopiako **afarrak** artzaintzatik, Filipinetako kalingak txandakako nekazaritzatik eta Andeetako ketxuak, azkenik, nekazaritza sedentariotik. ETC-prentsa

Horiez gain, 45 etnia txikitik gora biltzen dituen Hegoaldeko Nazioen, Nazionalitateetan eta Herrien Eskualdea dago, eta beste zenbait talde ere geratzen dira kategorizazio horietatik kanpo (hararіak, **afarrak**, somaliarrak eta abar). ETC-prentsa

Afarrera edo **afar** hizkuntza **Afar** izen bereko herriaren hizkuntza da. Herri hau hiru estatutan bauta dago: Etiopia (ekialdeko Afar eskualdea), Djibuti (mendebaldea) eta Eritrea (ekialdea). ETC-entziklopedia

Assal aintzira Djibutiko Tadjourah Eskualdearen hegoaldean dagoen krater aintzira Sakonune endorreiko endorreiko bat da, **afar** herriaren lurraldean. ETC-entziklopedia

Afrikako Adarrean ere erabiltzen dute dhotia, gehienbat somaliar etnia somaliar eta **afar** etnietakoek. ETC-entziklopedia

Somaliar eta **afar** herriak, Arabiarekin beti harreman estuak izan dituztenak, Islamaren eragina jaso zuten Afrikako lehenetakoak izan ziren. ETC-entziklopedia

Saho hizkuntza Eritrea Hegoaldeko eta Etiopiako Tigray eskualdeko mintzaira kuxitikoa da, **afar** hizkuntzaren taldekoa. ETC-entziklopedia

---

afari 1 *iz* iluntzean egiten den otordua.

-Beraz, egingo al dugu beste **afari** bat? Bazkariak eta **afariak** jatetxeetan egiten nituen gehienetan, beti bakarrik. Oskar Arana

Luzia **afaria** prestatzen ari da Lucy sukaldetik jangelara eta jangelatik sukaldera dabilen bitartean mahai-tresnak eta platerak hartu eta mahai gainean beren lekuan jarriz. Joxemari Iturralde

Afaria eskaini ziguten, eta **afariaren** ostean dantzaldia. Edorta Jimenez

Marta ari zen **afaria** zerbitzatzen, eta Lazaro Jesusekin mahaian zeudenetariko bat zen. Elizen arteko biblia

Afariko entsalada oliorik gabekoa izan zen. Edorta Jimenez

Afarikoan, morroia bidali zuen gonbidatuei esatera: "Etorri, dena gertu dago eta". Elizen arteko biblia

Afaria amaiturik zen ordurako, eta gainerako guztiak kanpora atereak ziren etxe osteko lorategian esertzera. Oskar Arana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aratsean, **afari** haundi batean, deneri ongi-etorria, ahantzi gabe jin berri den Eskiulako xuberotar dantzari talde bikaina! Herria

Imajinatzen duzu, zuen etxean edo Montpellier-en, **afari** goxo baten inguruan. Patxi Zubizarreta

Egundoko **afaria** egiten ari zen hau bere etxean, errege-otordua adinakoa. Elizen arteko biblia

Azken **afarirako** prestaketak. Elizen arteko biblia

Afaria oso aspergarria izan zen bigarren botila eskatu genuen arte. Joxemari Iturralde

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oroitzen naiz une goxoa eta atsegina izan zela familia-**afari** hura. Oskar Arana

Ondotik, Bertsu **afaria**: Maialen Lujanbio, Jon Maiaeta Miren Artetxebertsulariekin. Herria

Ez zuten beren zerbitzua utzi beharrik izan, beraien kideko ziren lebitarrek prestatu baitzieten haiei ere Pazko-**afaria**. garrasiak botatzen dituzte eta oihuka ibiltzen dira beren jainkoen aurrean, hileta-**afarietan** egin ohi den bezala. Elizen arteko biblia

4 ***afari lege*** *(orobat **afari-lege**)* afari ez oso oparoa.

Afari-legea egiten ari ziren bitartean, morroiak behin eta berriro begiratzen zion tximinia-zuloan zegoen zaku bati, barrukoa zer zen igarri nahian. Martin Anso

Gauez, **afari legea** egiteko, janari txinatarra eskatu genuen telefonoz. astegunez, kristauek etxetik kanpo **afari-legea** maneran egiteko tokirik ez da gehiago gaueko hamaika eta erdiak iraganda. Iban Zaldua

Gu asko ginela eta, taberna batean egiten zituen bazkari eta **afari legea**. Joxemari Urteaga

Afari lege hotzak berotasun guti txertatu du haien gorputzean. Aingeru Epaltza

Nabarreria kaleko "El Requeté" jatetxe apalean mokautxo bat karlista bolondres zalapartari batzuen ondoan **afari-lege** gisa apalki hartu ondoren. Txillardegi

5 ***afari-merienda***

Liburu-denda seietan itxi ostean, Tom, Lucy eta hirurok **afari-merienda** egitera joan ginen Second Street Cafe-ra. Oskar Arana

Afari-merienda eder bat egitea elkarrekin. Berria - Harian

Gutun bat idatzi nion Zuzendari txit agurgarriari nire lagun minenei **afari-merienda** bat eskaintzeko baimena eskatuz. Anjel Lertxundi

Gero etxejabeak **afari-merienda** ematen die langileei. Berria - Kultura

Arbelez egindako mahai biribil ederrean ematen omen zieten hamaiketakoa, **afari-merienda** edo dena delakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Nik horrelako bat egunero **afari-meriendan** jaten dut. Joanes Urkixo

6 ***afari arin***

Afari arina egin zuen, bazkaria bera baino arinagoa, baina Raimundo Silvak bi kafe-kikaratxo edan zituen baten ordez, laster mehatxatuko zuen logurari aurre egiteko, aurreko gauean loaldi eskasa egin zuela kontuan harturik. Jon Alonso

Pentsa zitekeenaren kontra, **afari arina** eskatu zuen gonbidatuak, eta arnoa ere neurriz edan zuen. Joan Mari Irigoien

Gazela ez baina kattagorria etorri zitzaigun platerekin eta ardoarekin. "Zerbait arina" jango genuela esan zuen Jontxuk menua aukeratzean, baina **afari arin** hartan Latinoamerikan aste oso batean jan ohi nuena baino gehiago irentsi nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Eginen dira irakurketak eta gogoetaldiak **afari arin** baten inguruan. Herria

Beranta dute, **afari arin** batekin gelditzen dira, bestenaz ere ez dute halako gosea, ez-usaiako arratsal-askaria egin baitute. Michel Oronoz

Afari arina eskatu -txerrikumea baino ez-, arropa berehala erantzi, eta, burusi azpian sarturik, lo pisu batek hartu zuen, harriak bezala lo egin zuen, zabal eta zabar, hala nola lo egiten baitute ez odoluzkirik, ez arkakusorik eta ez buru-ahalmen handirik ez duten [...]. Jose Morales

Ganbara bat erakutsi zion gazteluko alderdi ilun batean zena, baina pausatzera utzi baino lehen, **afari arin** bat eskaini zion. Aurelia Arkotxa

Gizon batek **afari arin** bat ekarri zuen, eta mutil gazteak eseri egin ziren formak errespetatzeagatik. Irene Aldasoro

7 ***afari legea egin***

Gauez, **afari legea egiteko**, janari txinatarra eskatu genuen telefonoz. Iban Zaldua

Afari-legea egiten ari ziren bitartean, morroiak behin eta berriro begiratzen zion tximinia--zuloan zegoen zaku bati, barrukoa zer zen igarri nahian. Martin Anso

Agure Jauna hilzorian zegoela jakin orduko, berehala agertu zen Whittaker andrea, soinekoa aldatzeko eta **afari-legea egiteko** astia baino hartu ez zuelarik. Mirentxu Larrañaga

Afari-legea egiteko prestatzen duena benetan da xumea: tagliatelleak antxoekin txanpinoi-saltsan. Oskar Arana

Baina etxera iritsi, **afari legea egin**, ohean sartu eta adiskidearen emaztea besarkatuko duelarik, espero ez bezala erantzun duela iruditu zaio, emakumea jakinaren gainean balego bezala. Joxean Agirre

Mugazainen begipetik urruti, **afari legea egin** eta orbel gorriaren gainean etzan ziren, estalki bana gorputzaren babesgarri. Joxemari Urteaga

Eta berak oraindik goizero tranbian hirira joaten jarraitzen zuen eta arratsero hiritik etxera oinez itzultzen, George's Streeten **afari-legea egin** eta postre gisa arratseko egunkaria irakurri eta gero. Irene Aldasoro

8 *afari modu*

Afari-modua eginda, korrokada txiki batek ihes egin dio eta dudan egon da, aulkia atzeratuta biao txikia egin edo kaferen bat hartzea, gaua luzatuz gero ere. Urtzi Urrutikoeetxea

-Egin dezagun **afari-modu** bat. Anjel Lertxundi

9 *afari moduko*

Anselmok oso gustura egin zuen **afari moduko** hura, eta edandako garagardoek animaturik, erabat animaturik azaldu zen orduan bertan Soho auzoko club-etara sartzeko. Joxemari Iturralde

Bilera edo **afari moduko** bat. Fernando Morillo

10 *afaria egin*

Abigail Nabalengana itzuli zen. Egundoko **afaria egiten** ari zen hau bere etxean, errege-otordua adinakoa. Alai-alai zegoen Nabal eta arrunt mozkortua. Abigailek ez zion hitzik esan biharamun goizera arte;. Elizen arteko biblia

Baina Adela eta Esther dutxatu, apaindu eta behera jaitsi direnean (nik uste bezala, Adelak oraindik ez du apustua irabaztea lortu, zeren Estherrek behin eta berriro gogorarazi baitio San Frantziskotik gero eta hurbilago geundela eta, donuts-ak alde batera utzirik, berealdiko **afaria egiteko** gutizia zuela haren kontura), gelaren eta komunaren bakardadean patxadaz berrirakurri dut Dabiden mezua: "Rakel, laztana. Patxi Zubizarreta

Koadrilakoekin despedidako **afaria egin** nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Izan ere, alde batetik lortu nuen etxetik kanpo geratzea **afaria egiteko**, zeren eta etxe barruan Brezorekin geratzea niretzat tranpa moduko bat zela iruditzen baitzitzaidan. Joxemari Iturralde

Euskaldunok hemen etxeari teilatua ematean, erramu-zarbaz gaina koroatzen diogun bezala, gero erramu-**afaria egiteko**, han, lizarra zizuten horretarako hautatua. Pello Zabala

Tomen lizentziatu-titulua ospatzeko **afaria egin** zen garaian, erditua zen jada ezkontzaz kanpoko ume batez (Lucy izeneko neska bat). Oskar Arana

Agian helduden urteko bertsu **afaria eginen** da, eta behar bada jendea mugituko da gehixago. Herria

Lanera atera, janaria erosi, **afaria egin**. Berria - Harian

-Afaria egin nahi baduk, hona hemen zerbait -ontzi zapal bat utzi zidan, zapiz estalia, eta bihar arte! Edorta Jimenez

Ikastaroa amaitzearekin lagunarteko **afaria egitera** joan ginen. Andoni Egaña

Nire ikastetxeko lagun taldeak hiriburuan ikasturte amaierako **afaria egitea** erabaki zuen. Aitor Arana

Afaria egin ondoren, zu iritsi aurretik. Lander Garro

-Jendea oraindik, batzuk kalean, besteak **afaria egiten** hasi gabe, eta zuek ohean pentsatzen. Pedro Alberdi

'Afaria egingo dugu, situazioaren urgentziaren araberakoa,' dio Imanolek, ni dutxatu bitartean bera prestatzen hasi den arroz zuria erakutsiz. Joseba Sarrionandia

-Afaria egiten. Fernando Morillo

-John -proposatu zuen Michaelek-, goazen Wendy esnatzera: **afaria egin** behar digu. Julen Gabiria

11 *agur afari*

Hargatik, egitekoak ziren **agur afariak** poztu bezainbeste atsekabetzen zuen. Patxi Zubizarreta

Merezitako **agur afaria** egingo diote Alvaro Gonzalez de Galdeano txirrindulari ohiari Gasteizko hotel batean, urtarrilaren 7an. Berria - Kirola

Handik gutxira, **agur-afari** bat izan zuen, Altzako lagunarteko beste neska batek ezkondu behar zuela-eta. Joan Mari Irigoien

Baina norberaren izaerak ez du ebaketa on bat zapuzten, eta, dohain handiko zirujaua izanik, hiritarrek **agur afari** bat antolatu zioten -itxurak gordetzearren, agian- Edinburgotik joan aurretik. J.M. Olaizola "Txiliku"

12 *azken afari*

Nire ondoan dagoen gazte batek komentario irrigarri bat egin du **Azken afariko** koadroan bizkarra emanda dauden apostoluak seinalatuz. Berria - Kultura

Atzo goizaldean bukatu zen lau orduko aurreneko bilera, eta alderdiak ados jarri ez eta gauerako egin zuten bigarren hitzordua hainbat hedabideren hitzetan, "**azken afaria**» izango zen atzo gauekoa. Berria - Mundua

Azken afaria: hona nire gorputz-odolak! Elizen arteko biblia

Azken afaria: apostolu bakoitzaren aurpegia gertatzen ari denari buruzko ikuspuntu narratzaile bat da. Anjel Lertxundi

Jesusek **Azken Afaria** ospatzen duenerako, auskalo, baina XIII-XIV mende izan ditzakete Pazkoa udaberriko lehen ilbetean ospatzen. Pello Zabala

Oraindik ere gogoan dut Leonardo Da Vinciren **Azken Afariarena**. Javi Cillero

Mendizabal ez zihoan Algortara San Nikolas elizan **azken afariaren** elizkizunean parte hartzera, seguru asko igandeko Aberri Egunari begira ariko ziren zer edo zer prestatzen, honezkero ez zaigu axola zer. Xabier Mendiguren Elizegi

Grial hori edalontzi bat zen, Jesusek **Azken Afarian** erabilia; Jose Arimateakoak gorde zuen ontzia, eta bertan bildu zituen Jesus gurutzean zintzilik zegoela bihotzetik eroritako odol tantak. Juan Kruz Igerabide

Jesu Kristo gure Jaunak, ezarri zuena, ororen aburuz, bere **azken afarian** apostoluei erran zielarik: Egizue hau ene oroigarri!, hots, hau egiteko boterea har ezazue, hori baitzen sagaratzeko boterea. Piarres Xarriton

13 *ezkondu aurreko agur-afari* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ezkondu aurreko agur-afari baterako al dira? ETC-literatura, saiakera

Komisariako lankide baten **ezkondu aurreko agur-afaria** ospatzen ari ziren, eta afaldu ondoren, baten bati bururatu zitzaion fama txarreko lokal hartara joatea, bertako dantzariak Pragako ikusgarrienetarikoak omen zirelako. ETC-literatura, saiakera

Arrasateko neska kuadrilla bat Eibarren **ezkondu aurreko agur-afaria**n. ETC-prentsa

14 *gabon afari*

Perrette kezkatzen hasita zegoen **Gabon-afaria** zela eta. Jon Muñoz

Lagunekin egin zuten **Gabon afaria**, etxean. Imanol Zurutuza

-Eta festa ondo amaitzeko, malta-whiskya, noski; ados egongo haiz nirekin, ezta? -Inaxiok **gabon-afarirako** erosten ari den edabeei buruz hitz egiten jarraitzen du, temati. Iban Zaldua

15 *sorgin afari* gauerdiko afaria.

Ailegatu, amaren saihets berora bildu eta, xera batzuk eginda, **sorgin-afari** batez gozatzeko parada ez nuen, menturaz, galdua oraino. Aingeru Epaltza

Euskadi Irratian bazen orduan **Sorgin afaria** izeneko irratsaioa. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

afari arin (6); **afari bat** (75); **afari bat antolatua** (7); **afari bat antolatzen** (10); **afari bat izanen** (4); **afari batean** (24); **afari batekin** (8); **afari baten** (10); **afari batera** (5); **afari berezia** (8); **afari beroa** (4); **afari beroak** (4); **afari denboran** (18); **afari eder** (10); **afari eder bat** (8); **afari ederra** (4); **afari edo** (6); **afari eta** (22); **afari goxo** (14); **afari goxo baten** (5); **afari hartako** (4); **afari hartan** (14); **afari hau** (6); **afari herrikoi** (4); **afari herrikoia** (6); **afari horren** (4); **afari horretan** (4); **afari hura** (9); **afari legea** (14); **afari legea egin** (4); **afari merienda** (12); **afari on** (32); **afari on bat** (15); **afari on baten** (7); **afari ona** (6); **afari osoan** (6); **afari pasa** (5); **afari pasa egin** (5); **afaria amaitu** (6); **afaria antolatu** (5); **afaria antzerkia** (4); **afaria bukatu** (8); **afaria bukatu eta** (4); **afaria bukatuta** (4); **afaria egin** (22); **afaria egin zuten** (5); **afaria egingo** (7); **afaria egiten** (4); **afaria eman** (7); **afaria ere** (9); **afaria eta** (31); **afaria ez** (5); **afaria herriko** (4); **afaria izanen** (5); **afaria izanen da** (4); **afaria izango** (6); **afaria ordaindu** (5); **afaria prest** (11); **afaria prestatu** (19); **afaria prestatzea** (5); **afaria prestatzeko** (4); **afaria prestatzen** (20); **afaria prestatzen ari** (7); **afariak eta** (4); **afarian parte** (8); **afarian parte hartzeko** (4); **afariaren ostean** (4); **afarirako prestaketak** (5); **afariren bat** (5); **afariren bat** (5); **afaritik landa** (5); **angira afaria** (6); **aratsean afaria** (10); **arteko afari** (8); **azken afaria** (21); **azken afariaren** (4); **azken afariko** (4); **bazkari afari** (5); **bazkari afariak** (5); **bazkari edo afari** (4); **bazkari eta afari** (4); **bertso afari** (14); **bertso afaria** (5); **bertso afarietan** (4); **bertsu afari** (23); **bertsu afari bat** (11); **bertsu afaria** (40); **beste afari** (4); **bustitze eta afari** (5); **bustitze eta afaria** (4); **da afari** (11); **da afaria** (12); **dira afari** (5); **du afaria** (4); **edo afari** (6); **edo afaria** (5); **eta afari** (57); **eta afari bat** (6); **eta afari on** (8); **eta afaria** (61); **eta afariak** (7); **eta afarian** (6); **eta afariaren** (8); **eta afaritarako** (4); **eta gero afaria** (5); **eta herri afaria** (4); **eta ondotik afaria** (4); **etan angira afaria** (4); **gauean afaria** (6); **gaueko afarian** (5);

genuen afaria (4); gero afari (4); gero afaria (8); herri afaria (10); izan zen afaria (4); izanen da afaria (4); kantu afari (7); kantu afaria (7); nire afaria (4); ondotik afari (4); ondotik afaria (18); pazko afaria (8); sagarno afaria (4); sorgin afaria (16); sorgin afaria antzerkia (4); zen afaria (7); zuen afari (6); zuen afaria (7)

---

afariño *iz adkor* afaritxoa.

Gazte eta ez hain gazte denak dantzan ariko, suaren itzulian, edo jauzika, kasu eginez halere, suaren gainetik! Gero, **afariño** bat, legatza sukaldari on batzuek prestaturik... Alberto Barandiaren

---

afaritako *izlag* afaltzekoa.

Afaritako proposamena egiteko tarterik egokiena ote zen galdetzen ari nintzaion neure buruari, esan zidanean: Ramon Saizarbitoria

Halako batean, erre gabe gehiago ezin izaten zuelako edo bere **afaritako** ordua bide zelako, altxatu eta alde egiten zuen aitari esku bat besaburuan jarri ondoren. Ramon Saizarbitoria

194 Lehen puntua da **afaritako** lagunak ikusi; eta neuregana itzulirik, haiengandik onura ateratzen saiatzea. Patxi Altuna

---

afaritan *adlag* afaltzen.

Eta guk ea konplimendu egoki batzuk egiten dizkiegun **afaritan**. Iñaki Mendiguren

Afaritan euskaldunoi eta ongi jateari buruzko topikoaz hitz egin genuen. Ramon Saizarbitoria

Afaritan, burua astindu zuen Sun-hartzak, ikusirik mahai gainean hiru platerkada pasta-zopa, zorrotxokoa. Juan Kruz Igerabide

Alkizan ezin esan ezer bukatzen zenik, izan ere zin egin genion elkarri hilean behin **afaritan** bilduko ginela, txuletoiak Joxe Mariren kontu, eta zin horrek ederki gozotu zituen despedidaren mikatzak. Joxean Sagaztizabal

Alberto hiztun egon zen **afaritan**. Juan Kruz Igerabide

Afaritan inoizko berritsuen eta alaien aurkitu zuten etxekoek. Pedro Alberdi

Amak asko jende zuen atzo **afaritan**. Jon Muñoz

Afaritan, agure nazkagarria antzeko handikeriak kontatzen aritu zen. Koro Navarro

Hori bera sentituko ahal du idazle gaztearenera **afaritan** joatekoa den hiriburuko kultur zinegotziak, Elvira andereak alegia. Patxi Zubizarreta

Gaur, Prusiarraz gain, Ainhoa Arteta ere gurekin dago **afaritan**. Harkaitz Cano

---

afaritara *adlag* afaltzera.

Etxekoak seguru asko larritzen hasiak ere bai, **afaritara** agertu ez ginelako. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta egunero-egunero, fakultate aurretik igaro eta bere Luis XV patrikako erlojuaren ordua unibertsitateko ordulariaren biribil goitituarenarekin alderatu ondoren, Uso Zaharren karrikan barrena ezkutatzen zen, eta **afaritara** itzultzeko baizik ez zen ateratzen handik. Josu Zabaleta

Afaritara ere gonbidatu izan zenutela zenbaitetan eta, baietz, Senpe zela bailara honetan ezagutzen zenuen bakarretakoa. Hasier Etxeberria

Hain nintzen ezdeustua gelditu, non haatik **afaritara** joan behar nuen etxera gida nindezaten utzi nuen: han gelditzea ordea ezinezkoa izan zitzaidan; kordea galtzeko zorian sentitzen nintzen une oroz, eta batez ere malkoei ezin eutsi nien. Jon Muñoz

Behin behar eta, Manhattango jatetxe batean kamarero bezala lan egiten duen Francis gure lagunarekin joan gara **afaritara** Euskal Etxera. Harkaitz Cano

---

afarite *(corpusean **afaite** soilik) iz* afaltzea.

Bazkaitean eta **afaitean**. Menane Oxandabaratz

-Afaitera eman behar diot... Eneko Bidegain

Ikusgarri bat bazen, kantari multxo baten inguruan, hura bururatu-eta joan ginen **afaitera** Santa Fe euskaldun ostatura. Herria

---

afaritto *iz adkor* afaritxoa.

Giro onean bururatu da toki hortako haundi-ttipiak bildu dituen **afarittoa**, garaztar balios batek bere herriari eskaini zion "amerikanoaren" etxean. Herria

---

afaritxo *iz adkor* afari xumea.

Haiek etxeratzen zirenean, **afaritxo** bat egin, kafea hartu eta, sarri, klubetara jotzen nuen, asteko nekea eta etxeko giro hotza argi gorrisken pean epeltzera. Migel Angel Mintegi

Eta ea egunen batean **afaritxo** bat egiten dugun. Joan Mari Irigoien

Alde zaharrera joango ginen **afaritxo** bat egitera, eta kitto. Joxemari Iturralde

---

afariusi *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* afari arina.

Baina Del Río eta Álvarez-en (1992) datuen arabera, egia da afarietan etxeko guztiak elkartzeko joera handiagoa dela; baina, tamalez, familia askorentzat azkar hartzen den **afariusia** izaten da, eta, gainera, telebistaren itzalpean egindakoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, jakizue nik ez daukadala eskaintzeko **afariusik**, behintzat ardorik gabe hartzeko prest ez bazaudete. ETC-literatura, saiakera

---

afasia *iz* hitz egiteko gaitasunaren galera osoa edo partziala, burmuineko arazoren baten ondoriozkoa.

- **Afasia** edo hitzetarako gorreria-kasu bat da -jarraitu zuen Andresek. Josu Zabaleta

Identifikaturik neuzkan ahots gehienak, eta izen bana ere emana nion gaixo bakoitzari neure golkoan, eta haien istorio iraganak (gris eta tristeak guztiak) eta etorkizunerako izan zezazketen itxaropenak (tetraplejia, **afasia**, higimen-desoreka...) irudikatuz arintzen nituen ordu luzeak. Anjel Lertxundi

Oso sinple esanda, paraleloa ikusten da haurrek lehendabizi menperatzen dituzten hotsen, **afasiak** lehendabizi galarazten dituen hotsen eta hizkuntzetan hedatuen dauden hotsen artean. Lourdes Oñederra

JAKOBSON izan zen lehenengoa paraleloa ikusten hizkuntz jabekuntzaren, hizkuntzen joera unibertsalen eta **afasiako** hizkuntz galtzearen artean. Lourdes Oñederra

Afasiako nahiz agrafiako kasu guztietan, lesionatua dagoena, gutxiago da honako edo halako hotsak esateko edota ikur batzuk edo beste batzuk marrazteko ahalmena, zernahi tresnaren bidez mintzaira erregular baten ikurrak gogorarazteko ahalmena baino.-Iruditzen zait emakume hau **afasia**-egoera batean dagoela. Isabel Arrigain

afasiko *izond* afasiak joa.

Afasikoek, hizkuntza galtzen doazela, hurrenkera berdinari jarraitzen diote, baina alderantziz. Markos Zapiain

Lacan paranoikoen mintzamoldeak harrapatu zuen ber, Izagirrek **afasiko** mota batekin egin du bat, edo berbetan hasten ari den umearen aro jakin batekin. Markos Zapiain

Lacan paranoikoen mintzamoldeak harrapatu zuen ber, Izagirrek **afasiko** mota batekin egin du bat, edo berbetan hasten ari den umearen aro jakin batekin. Markos Zapiain

---

afeitatu, afeita(tu), afeitatzen da/du *ad* bizarra edo ileak larru arras ebaki.

Berak ez zuen loturarik lasatu, pentsatu zuen, koilara utzi eta bere ezpainalde ongi **afeitatua** fintasun handiz garbituz. Anton Garikano

Behean, gizonezko bat iztartea **afeitatzen** ari zaio. Berria - Kultura

---

afektatu, afekta(tu), afektatzen du *ad* ondorioren bat eragin zerbaiti edo norbaiti.

Bere burua ez baitu begiesten zuzenki berezko ekimenaren indarrez errepresentatuko balu bezala, barnetik **afektatua** izango balitz bezala baizik. Ibon Uribarri

Edonork hauteman ahal izango du bere baitan zein sarri den **afektatua** gogamena. Ibon Uribarri

Afekzioaren ideiak partez soilik agertzen du giza gorputzaren izatasuna: **afektatua** daukan haren partea. Piarres Xarriton

Ez dugu errealitatea ikusi nahi, ez dugu imajinatu nahi agian egunen batean ezingo dugula pertsona horren presentzia gure ondoan jasan, inoiz ez nuen pentsatu hainbeste **afektatuko** ninduenik, orduan ulertu nuen zergatik abandonatu ninduen Laurak. Mikel Hernandez Abaitua

Aztarna horiek gorputz-azalera markatzen duten zantzuak dira eta ordura arte funtsean bizigabea (gorputz **afektatuaren**) eta kanpokoa (gorputz afektatzailearen) izan denaren kontzientzia hartzeko ahalbidea ematen du. Piarres Xarriton

Sentimena edo zerbaitek **afektatua** izateko gogamenaren gaitasuna (harmena: ezagutzako elementu pasiboa) eta adimena, sentimenen bidez jasotako informazioa adigarriki elaboratzeko gaitasun aktiboa, hots, pentsatzekoa, errepresentazioak sortzeko berezkotasuna (kreatibitatea). Askoren artean

Giza hautamena ez du zirraratzen duenak soilik determinatzen, hø dØ, sentsuak zuzenki **afektatzen** dituenak. Ibon Uribarri

Ohartu behar da giza gorputza forma-aniztasun batek, gorputz-aniztasun batek eta, okerrago dena, bere osotasunean ezin besarkatuzkoa den ordena batean **afektatzen** duela. Piarres Xarriton

Objektu batek errepresentazio-gaitasunean duen eragina sentsazioa da, hark **afektatzen** gaituen heinean. Ibon Uribarri

Ene gorputza nire nahimena da, nire nahimenaren objektibazioa: gorputza **afektatzen** duen orok **afektatzen** nau ni (nahimen gisa: nire atsegin edo atsekabea eraginez), eta gorputza **afektatzen** ez duen ezerk ni ez nau **afektatzen**. Askoren artean

Geure errepresentazioak besterik ez baitira gure autugaia; ea berbaitango gauzak nolakoak ote diren (haiek gu **afektatzeko** erabiltzen dituzten errepresentazioak aintzat hartu gabe), erabat gure ezagutzaren esferatik at geratzen den kontua da. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **afektatua den** (4); **afektatua izateko** (6); **afektatuak garen** (5); **afektatuak garen heinean** (3); **afektatuak izateko** (3); **afektatzen duen** (3)

---

afektatzaile *izlag* afektatzen duena.

Aztarna horiek gorputz-azalera markatzen duten zantzuak dira eta ordura arte funtsean bizigabea (gorputz afektatuaren) eta kanpokoa (gorputz **afektatzailearen**) izan denaren kontzientzia hartzeko ahalbidea ematen du. Piarres Xarriton

Hori gertatzen bada afekzioan berez esan nahi duenari erreparatzeagatik da: gorputz **afektatzaile**, gorputz afektatua; baina berez afekzioa ezinezkoa litzateke **afektatzaileak** eta afektatuak ez balute zerbait komunik, bat datozen hori, gorputz guztiekiko komuna den hori. Piarres Xarriton

---

afektazio **1** *iz* ondorioren bat eragitea zerbaiti edo norbaiti.

Beren seme alabei ikastegiek egiten dizkieten orientabide proposamenak gaizki bizitzen dituzten burrasoek azken dei bat egin dezakete "departamenduko **afektazio** batzordearen" aitzinera. Herria

Afektazio batzordea bilduko da: Ekainaren 14 eta 15-etan, hirugarren eta bigarren klasetako ikasleen dozierak tratatzeko. Herria

2 manerakeria

-Hago lasai, gizona, ametsak hil egiten dituk-eta! -esan zidan; zigarro luzexka bat piztu zuen gero, **afektazio** osoz-. Anjel Lertxundi

Menard-en estilo antzinazaleari -hura arrotza izaki- **afektazio** apur bat atzematen zaio. Juan Garzia

Beharbada, Guridiren abestietan **afektazio** gehiegitxo erakutsi zuen. Berria - Kultura

Cadiz ingurukoak, ordea, pasio handiz heldu die, baina era berean **afektaziorik** gabe. Berria - Kultura

---

afektibitate **1** *iz* bizitza afektiboaren gertakarien multzoa.

Afektibitatea, emazteari buruzko irrika, ezin gakotuz ari nintzen. Piarres Aintziart

Afektibitatea urritzen denean, zenbat kostatzen zaigun harremanen errealitate gordinari eustea! Anjel Lertxundi

Afektibitatea bizio pribatutzat jotzen da egun. Berria - Kultura

Ironia sarkasmotik bereizten duena ironiak objetuarekiko duen **afektibitatea** dela, sarkasmoak ez duena.Euskararen sostenguz, afera horretan sartzen dugun **afektibitatea** baliatzen da, onartezinaren onartzeko eta onarrarazteko. Berria - Kultura

Ezindu psikikoen **afektibitateak** eta sexualitateak gurasoen zalantzak, kezkak eta beldurrak eragiten ditu. Berria - Euskal Herria

Lan hura **afektibitateak** gidatu zuen, eta idazle hark maite egiten zuen elkarrizketaturiko kantari bakoitza, aipaturiko kantu bakoitza. Pako Aristi

Afektibitatearen arloan, historikoki, emakumeak gizonen aurretik egon gara. Berria - Gaiak

Samurtasuna gure **afektibitatearen** eta sexualitatearen ardatzetako bat da. Luis Elberdin

Gizartetik aparte, harreman politikorik gabe, burkide eta lagunenekiko loturak etenda, **afektibitatean** behartsu... etorkizun hurbilak kartzelako bakardadea besterik ez dizu eskaintzen. Rafa Egiguren

Gure ama elbarritua zen berbazko **afektibitaterako**. Mikel Hernandez Abaitua

Irudi artistikoak gehienetan, zentzumenetarako eta **afektibitaterako** karga handiagoa dutelako. Josu Zabaleta

Leonardo homosexual erreprimitua omen zen, edo sublimatua, hobeto esateko, **afektibitatez** amari atxikia. Josu Zabaleta

Afektibitatezko (ukimenezko edo ikusmenezko) sentipen-joera. Josu Zabaleta

Interesgarria gertatzen da ikusmolde hori, **afektibitatezko** determinazio psikologikoetan oinarritu nahi baitu Worringerrek oso-osorik: imitaziozko artea, naturalista, *Einfühlung* hori den munduarekiko enpatiazko identifikazio-harreman horretan oinarritzen da. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Emoziozko babes edo **afektibitate** falta handia izaten dute gehienek.Zer da eskizofrenia?: Pentsamendu, **afektibitate** eta portaera prozesuen nahasmena da. Berria - Euskal Herria

Ez nuen besarkatu, ez nion muxurik eman, ez nekien zer gehiago esan, zer egin, nola jokatu, oso gaztea nintzen oraino, haren ondoan eseri nahi nuen eta besarkatu, baina ezin nuen, asko hitz egiten genuen beti, baina **afektibitate** gauzetarako elbarrituak ginen. Mikel Hernandez Abaitua

Baita **afektibitate** eta sexualitate kontuetan ere. Berria - Euskal Herria

Afektibitate aldetik miseriarik gorrienean aurkitzen delako, bakardade absolutuenean alegia. Ramon Saizarbitoria

Zirudienez ez zuen ematen garai bateko senargaiaz ari zenik, hau erabat bazterturik bide zegoen betiko Maddalenen **afektibitate** mundutik. Joxemari Iturralde

---

afektibo 1 *izond* afektuari dagokiona.

Seme-alaben bizitza emozional, **afektibo** eta sexuala oso garrantzitsua da, bai seme-alabentzat eurentzat, bai gurasoentzat. Luis Elberdin

Herri hizkerek badute osagai **afektibo** sakona. Koldo Zuazo

Harreman **afektiboa** ona zen euren artean; hala, bada, hilabete batzuetara harreman sexualak izatea erabaki zuten. Luis Elberdin

Euskarak maila **afektiboan** izan zezakeen eragina ere hartzen nuen kontuan, ziur bainengoen maila horretan -bere background **afektiboan**, alegia-, handia edo txikia, baina euskarak lekuren bat betetzen zuela. Ramon Saizarbitoria

Denbora galarazten edo iritziz aldarazten duten malkoak eta barru-hustuketa **afektiboak**. Joseba Urteaga

Zerrenda horretatik gure eginbeharrak eta zor **afektiboak** ezabatzea ezinezkoa da, gure ekintza inozo eta barregarriez ahaztu daitezen eskatzea, xaloegia. Harkaitz Cano

Hutsune **afektibo** nabarmen baten betegarri. Joxerra Garzia

Ez zuan, beharbada, erabakirik zuzenena izan, baina, alderdi **afektiboei** zein ekonomikoei begiratuta, puntu hartan ez zitzaidaan hain okerra iduritu. Aingeru Epaltza

Zer dela eta miresmen hori, lotura **afektiboa** da ala zerbait gehiago? Ana Urkiza

Emakume batzuei beste emakume batzuk gustatzen zaizkie, bai modu **afektiboan**, bai sexualean. Luis Elberdin

Lan bat aintzat har dadin, pentsamolde berri bat onar dadin, araztu beharra dago ikerlana zabor **afektibo** edo irrazional guztiez. Juan Garzia

Hematoma **afektibo** batzuekin. Joseba Sarrionandia

Barojak ezkontza burgesa ikusten du gizarte erakunde bat balitz bezala, ez aukera pertsonal bat; etsigarria, aurretiaz porrot sentimentalera eta **afektibora** bideratua. Josu Zabaleta

Lizarrarekiko oso lotura estua izan dut beti, nire asteburu eta opor guztietako geografia **afektiboa** izan baita. Ana Urkiza

Bere leialtasuna huts-hutsik **afektiboa** zen eta ez zen hedatzen lanaren mundura, horretan beti prest baitzegoen egiten zuena desegiteko eta uneoro bide eta teknika gero eta berriago eta modernoagoak bilatzeko; izan ere, gauzak eskuetan zahartzen zitzaizkiolako irudipena zuen. Fernando Rey

Izan liteke betipox, muxu-merke eta hagitz besarkante eta beldurgarri **afektiboa**, uste hutsezko senidetasun edo gozotasun bat noiznahi antzeztera txit emana. Iñaki Segurola

Parte-hartze **afektibozko** fenomenoak. Josu Zabaleta

2 (izenondo elkartuetan)

Iraultzaren kontua ipuin bihurtu zenean, ezinezkoa zitzaidan lotura politiko-**afektibo** haiek guztiak etetea eta neure bide propioan abiatzea. Joxerra Garzia

Pixkana-pixkana, ikasketek aurrera egin ahala, euskararen mundutik urrutiratzen eta euskarak bere baitan duen mundu sinboliko- **afektibotik** urrutiratzen hasi nintzen. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **afektibo eta** (8); **afektiboa eta** (3); **afektiboa izan** (3); **afektiboak eta** (3); **eta afektiboa** (4); **eta afektiboak** (3); **harreman afektibo** (3); **harreman afektiboak** (6); **lotura afektibo** (6); **lotura afektiboa** (5); **oinaze afektiboa** (3)

---

afektiboki *adlag* afektibotasunaren aldetik.

Hizketan hotza eta zimurra bezain **afektiboki** inguraezina zen hango langileria, erran gabe doa. Harkaitz Cano

Afektiboki uros izan banintz, zer ez nuen eginen? Piarres Aintziart

---

afektibotasun *iz* afektiboa denaren nolakotasuna.

Faktore horrek, euskararekiko **afektibotasunak**, eragin handia izan du nire bizitzan. Ana Urkiza

---

afekto ik **afektu**.

---

afektu *(orobat **afekto** g.er.)* **1** *iz* norbaiten aldeko sentipena; norbaitenganako estimu, txera edo maitasun neurritsua.

Afektuak deitzen ditut Gorputzaren afekzioak, zeinek gorputz horren iharduteko ahalmena handitzen edo tipitzen, laguntzen edo eragozten baitute. Piarres Xarriton

Afektuak gobernatzeko eta hertsatzeko giza ezintasuna deitzen dut Morrontza. Felipe Juaristi

Kantentzat "subjektuari gogoeta egiten uzten ez dion (---...) atsegin edo desatsegin-sentipen bat" da **afektua**. Josu Zabaleta

Bizitzari misterio pixka bat jarri behar zaio, jolasa, **afektua**, ez gara soldata baten meneko makina hutsak. Pako Aristi

Pentsamendu femeninoak pentsatzeko hurbiltasuna behar du, objektuak behar ditu, **afektua**, ukimena, usaimena, ikusmena... Ana Urkiza

Amodioa, desira, edo izpirituaren **afektua** deitzen den pentsatzeko beste edozein modu. Piarres Xarriton

Afektua, beraz, irudimen bat da. Piarres Xarriton

Otoitzean, gure barne **afektuak** garbitu egiten ditugu, eta arima On bakar, On egiazko eta gorengoarekin bat egiten da eta bertutean bizkortzen. Askoren artean

Gaur egun, azkeneko urteetan, berpizkunde moduko bat ikusten da, figura berrien bitartez: lan egiten duten ikasleak; informazioa, **afektuak** eta hizkuntza lantzen dituzten langileak. Berria - Kultura

Afektuak hertsatzeko gizakien ahalmena, soilik, adimenari baitagokio nehork ez du dohatsutasuna gozatzerik erdietsiko **afektuak** hezi dituelako baina, alderantziz, dohatsutasunetik beretik datorkioke bakoitzari haien hezteko ahalmena. Piarres Xarriton

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Afektu guztiak, Poztasunari, Tristurari edo Desirari dagozkio. Piarres Xarriton

Gure irudikoa den gauza bat gorroto baldin badugu, orduan [...] kontrako **afektu** batez hunkituak izanen gara, baina ez antzeko **afektu** batez. Piarres Xarriton

Apaltasuna, haatik, errazago zuzen daiteke Hantustea baino, hau Poztasunezko **afektu** bat baita eta hura, berriz, Tristurazko **afektu** bat. Piarres Xarriton

Gorrotozko **afektu** horiek eta horien idurikoak Bekaizkerian biltzen dira. Piarres Xarriton

Poztasunezko nahiz Tristurazko **afektu** batez hunkitua izatea Izpiritua. Piarres Xarriton

Iraganeko ala etorkizuneko gauza baten irudiak hunkitzen du gizakia, presenteko gauza baten irudiak hunkitzen duen Poztasunezko edo tristurazko **afektu** beraz. Piarres Xarriton

Gorrotozko **afektu** guztiak txarrak dira. Piarres Xarriton

Gupidaren eta Urrikalmenduaren artean badirudi ez dela neholako ezberdintasunik, non ez den, beharbada, Gupida **afektu** singular bati dagokiola eta Urrikalmendua, berriz, **afektu** horren ohiturari. Piarres Xarriton

3 (hitz elkartuetan)

Horrek esan nahi du: bere bizi-egitasmoak, ingurukoarekiko bere erlazio-antolakuntzak ezinbestean egon beharko dutela esperantza eta beldurraren alderantzizko **afektu**-bikote hori tartean dutela. Piarres Xarriton

Gainerako beste **Afektu** motak, ordea, ezin ditut hemen azaldu (objektu mota bezainbat baita), eta, egin ahalik ere, ez da beharrezko egitea. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **afektu bat** (20); **afektu batek** (11); **afektu baten** (11); **afektu baten bidez** (3); **afektu batengatik** (3); **afektu batetik** (4); **afektu batetik sortzen** (3); **afektu batez** (11); **afektu batez hunkitua** (4); **afektu batez hunkituak** (3); **afektu batzuk** (3); **afektu beraz** (3); **afektu berberaz** (3); **afektu berdin** (3); **afektu berdin handi** (3); **afektu guztiak** (7); **afektu hau** (3); **afektu hauek** (7); **afektu hauen** (4); **afektu honen** (3); **afektu hori** (6); **afektu horiek** (17); **afektu horiek eta** (5); **afektu horien** (5); **afektu horren** (6); **afektu horren kausa** (4); **afektua baino** (6); **afektua biziki** (3); **afektua biziki motelagoa** (3); **afektua ez** (3); **afektuak berak** (3); **afektuak edo** (3); **afektuak elkarren** (3); **afektuak eta** (6); **afektuak ez** (4); **afektuak ez du** (3); **afektuaren arabera** (4); **afektuaren arabera erabakitzen** (3); **afektuei buruz** (4); **afektuek josten** (6); **afektuek josten dituzten** (4); **afektuen gainean** (6); **afektuen gainean duen** (3); **afektuen indarraz** (3); **afektuen indarrez** (3); **afektuen izaeraz** (3); **afektuen izaeraz eta** (3); **afektuen mende** (3); **afekturik ez** (7); **afekturik izan** (4); **afekturik izan ez** (3); **antzeko afektu** (3); **baina afektu** (3); **baita afektu** (3); **batekilako afektua** (14); **batekilako afektua biziki** (3); **baten afektuarekin** (3); **bere afektu** (3); **bere afektuak** (7); **bere afektuaren** (4); **bere afektuaren arabera** (4); **bere afektuen** (3); **beste afektu** (10); **beste afektu berdin** (3); **beste baten afektuarekin** (3); **bi afektu** (4); **bi afektu horiek** (3); **bi afektuk** (3); **da afektu** (4); **da afektuen** (3); **dela afektu** (3); **demonstrazioa afektu** (3); **den afektu** (8); **den afektua** (7); **den afektua baino** (3); **diren afektuak** (5); **diren afektuek** (6); **diren afektuek josten** (4); **duen afektu** (3); **duen afektua** (4); **edo afektu** (3); **edo afektuen** (4); **edo afektuen indarraz** (3); **eta afektu** (5); **eta bere afektuak** (4); **gauza batekilako afektua** (11); **gorrotozko afektu** (4); **hiru afektu** (3); **izpirituak afektuen** (3); **izpirituak afektuen gainean** (3); **kontingente batekilako afektua** (3); **morrontzaz edo afektuen** (4); **nahiz tristurazko afektu** (3); **neholako afekturik** (6); **nork bere afektuaren** (3); **pasioak diren afektuek** (6); **poztasunezko afektu** (4); **sortzen den afektua** (3); **tristuraren afektua** (3); **tristurazko afektu** (9); **tristurazko afektu batez** (3); **tristurazko afektua** (4); **zenbait afektu** (3)

---

afekzio **1** *iz* norbaiti edo zerbaiti buruz sentitzen den jaidura edo begikotasuna.

Koloreak "afektuzko nolakotasuntzat" sailkatzen dira **afekzio** batetik [...] datozelako, adibidez lotsak sorrarazirako gorritasuna, beldurrak eragindako zurbiltasuna. Xabier Kintana

Ezen ez da gauzen izaeran deus aurkitzen, substantziak eta haien **afekzioak** baizik. Piarres Xarriton

Arima in actu existitzen den gorputz baten ideia da, horretaz jabeturik dagoelarik gorputz horren **afekzioen** ideiak dituen heinean. Piarres Xarriton

Afekzioen ideiak gorputzaren **afekzioen** ordena berean kateatzen direnez gero, horrela aktibo bilakatzen dena gorputza bera da. Piarres Xarriton

Begiespen oro, sentsuzkoa denez, **afekzioetan** funtsatzen da, adigaiak, berriz, funtzioetan. Ibon Uribarri

Gizakiak ez du bere burua ezagutzen bere Gorputzaren **afekzioen** bidez eta hauen ideien bitartez baizik. Piarres Xarriton

Alde batera utzi ditut, afektuetan gertatzen diren Gorputzaren kanpoko **afekzioak**. Piarres Xarriton

Ez da nehongo Gorputzaren **afekziorik**, haren konzeptu argi eta berezi zerbait osa ez dezakegunik. Piarres Xarriton

Gure izaeraren kontrako afektuek josten ez gaituzteno, Gorputzeko **afekzioak** adimenari dagokion ordenaren arabera ordenatzeko eta kateatzeko ahalmena badugu. Piarres Xarriton

Gauzen pentsamenduak eta ideiak Izpirituan ordenatzen eta kateatzen direnean, Gorputzeko **afekzioak**, hots, gauzen irudiak, haien arabera ordenatzen eta kateatzen dira Gorputzean. Piarres Xarriton

Deleuzek mugimendu-irudiaren hiru modalitate bereizten ditu, pertzepzio-irudia, ekintza-irudia eta **afekzio**-irudia. Josu Zabaleta

Jainkoak ez du pasiorik, eta ez du **afekzio** bihirik pairatzen, ez bozkariorik ez tristurarik. Piarres Xarriton

Horrek esan nahi du: zerbait beharko da gorputz-**afekzio** guztietan eta bakoitzean, zeina subjektua kausa egokitzat edukirik bere baitatik soilik kontzebitzen dena. Piarres Xarriton

2 ***larruazaleko afekzio*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Larruazaleko afekzioak lesio eta eritasun multzo bat dira, larruazala eta, hedaduraz, tegumentu-sistema osatzen duten ile, azazkal eta mukosak ere erasaten dituztenak. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **afekzio bat** (3); **afekzio baten** (6); **afekzio baten ideiak** (3); **afekzioak baizik** (3); **afekzioaren kontrako** (3); **afekzioaren kontrako eta** (3); **afekzioen ideiak** (15); **afekzioen ideiak ez** (3); **afekzioen ideiak hautematen** (3); **afekzioen ideiek** (5); **afekzioen ideien** (7); **afekzioen ideien bitartez** (3); **afekzioen ideien ideiak** (3); **afekzioen ordena** (3); **afekzioen ordenaren** (4); **afekzioen ordenaren eta** (4); **atributuen afekzioak** (3); **duten afekzioen** (3); **edozein afekzioren** (4); **giza gorputzeko afekzio** (4); **giza gorputzeko afekzioen** (5); **gorputzaren afekzio** (5); **gorputzaren afekzioak** (5); **gorputzaren afekzioen** (12); **gorputzaren afekzioen ideiak** (5); **gorputzaren afekziorik** (3); **gorputzeko afekzio** (8); **gorputzeko afekzio baten** (6); **gorputzeko afekzioak** (3); **gorputzeko afekzioen** (14); **gorputzeko afekzioen ideiak** (6); **gorputzeko afekzioen ordenaren** (4); **gure gorputzaren afekzio** (3); **jainkoaren atributuen afekzioak** (3)

---

afelio *(corpusean ez dago; ETCn **82** agerraldi) iz* eguzkiaren inguruan dabiltzan objektuen orbitan, eguzkirainoko gehienezko distantzia.

Jupiter familiako kometa bat da, bere **afelio** guztia 5 eta 6 unitate astronomiko arteko distantzian duena. ETC-entziklopedia

Eguzkiaren kasuan, **afelio** deritzo, Lurraren kasuan apogeo, eta, Ilargiaren kasuan, jada zentzurik ez duen modu batean, aposelenio, baina beste kasu guztietan apoastro deritzo. ETC-entziklopedia

Eguzkitik gertuen dagoen momentuari perihelio deitzen zaio, eta urrunen dagoen momentuari **afelio**. ETC-entziklopedia

West kometa eta c/1999 F1 bezalako aldi luzeko kometek ia 70.000 unitate astronomikoko **afelio**-distantziak izan ditzakete, 6 milioi urte inguruko orbita-periodoekin. ETC-entziklopedia

Alegia, Lurretik eguzkirako distantzia ez da beti berdina, eta distantziarik luzeeneko (**afelio**) eta motzeneko (perihelio) puntu bana bereizten dira. ETC-entziklopedia

Aditu batzuek diote, marea galaktiko hauek **afelio** handia duten planetesimal batzuen perihelioa (Objektu bat Eguzkitik hurbilen dagoen unea) handitzeko gai direla eta beraz, Oorten hodeia handitzen laguntzen dutela. ETC-entziklopedia

Eguzkiaren inguruan dabilen planeta baten kasuan, **afelio** eta perihelio termino baliokideak erabiltzen dira. ETC-entziklopedia

---

afeminatu *izond/iz* gizonez mintzatuz, emakumezkoek ohi dituzten jarrera, imintzio eta jestuak dituena.

Bere izpiritu ahula jendaurrean poxten duen jende gehienak, izaten du berez halako ukitu **afeminatu** bat. Patziku Perurena

Hagitz interesgarria izanen litzateke, norbaitek entsegu eder bat eginen balu, **afeminatu**, fanatiko extu, matxista eta nahinolako artista publiko hitzen azpiko izate zinezkoak elkarri dioten zorra egungo semantikan aztertuz. Patziku Perurena

Afeminatuen sinbolotzat hartzen zuten panderoa, Zibelesen apaiz maritxuek erabiltzen zutelako. Patziku Perurena

---

afera **1** *iz* egitekoa, arazoa.

Gure lehenengo elkarrizketan **afera** bat baino gehiago aztertu beharko dugula iruditzen baitzait. Jon Muñoz

Eta **afera** horiek ez dagozkit niri. Jon Muñoz

Paueko Dei Gortean tratatu **aferen** %-eko 40 Baionatik etortzen da, Pauetik beretik %-eko 25 delarik heldu. Herria

Afera lege-gizonen eskuetan ezarria izan da. Herria

Handik hara **afera** administrazio auzitegian emanen du. Herria

Ez zen zaila **afera** argitzea. Aingeru Epaltza

-Bakarrik zenbait egun egonen naiz; hara joan, familiako **aferak** trenkatu, eta berehala itzuliko naiz. Elena Touyarou

Afera ez omen da haatik oraino arras trenkatua. Herria

Dena **afera** eta dena espantu, Thierry Breton, gobernuko diruzain handia, mintzatu da erraiteko aldaketa pizkorrak izanen direla mozkin-zergarentzat. Herria

Ligako finalerdietan itsasuarrekin izanen dituztela Noizbaitekoek **aferak** xuritzeko. Herria

Bai, **aferak** gaizki doatzi Korsikan! Herria

Armendaritzen, **aferak** gero-ta zorrotzago. Herria

Labur esanda, **afera** joera tragikoa hartzen ari zen. Karlos Zabala

Maulen egin nituen egunetan, erresumako **aferek** kanpoan atxiki zuten Enekot. Aingeru Epaltza

Orduan idatzi zuen Zolak bere gutuna, eta bete-betean murgildu zen Frantzia hainbat urtez zatitu zuen **aferan**. Karlos Zabala

Doñanako Estazio Biologikoak ere hartu zuen hitza Itoizko **aferan**, eta urtegia faunarentzat "oso kaltegarria" izanen zela azpimarratu zuen. Edurne Elizondo

Hortaz, txostenaren **afera** izan zitekeen jokoan jar zezaketen azken karta. Migel Angel Mintegi

Segurtasunaren **aferak** borrokatzen jarraitzeko beste ildo bat eman digu. Edurne Elizondo

Abuztuko asteazken hori halakotsua izana zen esku artean nerabilen **aferari** zegokionez: agorra eta iharra, aroaren pare. Aingeru Epaltza

Nahiz eta ez den aparteko garrantzirik duen **afera**, Raimundo Silvak gogoeta egiteari ekin zion. Jon Alonso

Hemen duzu **aferaren** dosierra. Karlos Zabala

Bulegoburua -gelazain ohia bera- herrixkako **aferetarako** batzorde sortu berrira aldatua zuten. Jose Morales

Hor dira **aferak** gaizki joan galtzalearentzat, Mugicak 12 tanto egin baititu lerroan eta 28-18 egin. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Florent **afera** gaiztoren batean sartua dago, sumatu egiten dut. Karlos Zabala

Esan beharra dago **afera** burugabe batean nahasirik ibili zela gazte-denboran. Jose Morales

Gero, patxadan, **afera** itsusi haiek Florent eta Gavard nora eraman zitzaketen kalkulatzen hasi ziren. Karlos Zabala

Afera hits hortan, noizbait jakinen ote da zinezko egia. Herria

Afera ilun eta latz hortan, saltsaren erdian senar emazte batzu, gaitzeko gauza itsusiak eginak, noizbait berek aitortuak, eta lege gizonek frogak ere ba bilduak. Herria

Bere bizitzako **aferarik** handienak, sarri Parisa joanaraziko du. Jon Muñoz

Hain **afera** garrantzitsu batean ez baita haatik deusez ezaxolatu behar, bi abokatu izanen ditut hain zuzen ere nihaurekin. Jon Muñoz

Ez nengoen batere seguru Ttipiren hilketa argitu nahian ari ote nintzen ala nirekin gehiago bizi ez zen emakumearen **afera** pribatuetan modurik zibilizatu gabeenean muturra sartzen. Baita etxeko **aferak** direla medio aspaldi honetan ez haizela behar bezain gogotik ari ere. Aingeru Epaltza

Hartaraino ez nintzen ohartu, nitaz landa, laugarrenik bazela Ximurraren eta Kristinaren arteko ustezko **aferak** joa. Aingeru Epaltza

Aspaldiko **afera** da niretako. Aingeru Epaltza

Soka luzeko **afera** da. Aingeru Epaltza

Horra huts egindako **afera**! Jon Muñoz

Bere kabuz desagertuko lirateke, baldin, uste izatekoa den bezala, Valmont eta Danceny jaunak beren **afera** zorigaiztokoaren ondoren elkarrekin mintzatu izan ez balira, eta batak bertzeari ezein paperik eman izan ez balio. Jon Muñoz

Salaketa gutun hori komunikabide guziei hel-arazi die Erien Axurantza Kutxak, eta denbora berean, Justizia eta **Afera** Sozialen ministroei. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bertze **afera** klase batzuetarako bezala, abitua zuen geriza eta babes. Aingeru Epaltza

Saltegi handien **afera** xifrea % 2-ez goititu da. Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Duintasun **afera** bat bazen hitzetaratu gabeko ikusmin horretan -inork ez zuen bere burua beheitituko, Soriaren "txilibita" ikuste hutsak tripa barnean eragiten zizkion erreakzio kimikoak aitortzeraino-. Aingeru Epaltza

Erlijio **aferak** ere bere kezketatik urrun izan zituen beti. Aingeru Epaltza

Moral **afera** bat zen. Monika Etxebarria

Bolada txarrean hago: familia **aferak**, batetik; hire lagunaren heriotza, bertzetik -ahotsa apaldu zuen-. Aingeru Epaltza

-Atzo aipatu nian, bada: marikoien arteko bihotz-**aferak**. Aingeru Epaltza

Soldadutzan bezala, hasi berriaren suak harrapaturik nengoen larru **aferetan** ere. Aingeru Epaltza

Nire jabegoetara behin agertuko, eta lan-**aferek** ekarria. -Ohe eta diru **aferetan** balitekek, baina istorio hau ez duk nire espezialitatekoa. Aingeru Epaltza

-Eta satanismo **afera** horretaz zein da zure iritzia? -Tomasek, ni bezain lehiatuta. Aingeru Epaltza

Bidarrai-Olhako lur saltze **aferak** ukan du ustegabeko segida. Herria

Idazlea jende askoren mehatxuen, laidoen eta gorrotoen jomuga baitzen, Dreyfus **aferan** izan zuen parte hartze latzarengatik. Karlos Zabala

Oraindik ikusten dut neure burua, Mercierrekin, Pétrou **aferaren** ondorioz aurreko urtean dimititu zuen funtzionario frantses harekin, haren bulegoan. Monika Etxebarria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

afera argitu (4); **afera argitzeko** (6); **afera aztertzeko** (5); **afera bat** (22); **afera batean** (5); **afera baten** (10); **afera batzuk** (6); **afera da** (15); **afera dela** (14); **afera dela eta** (5); **afera ere** (4); **afera eta** (13); **afera ez** (31); **afera ez da** (13); **afera guztia** (4); **afera hartan** (12); **afera hau** (22); **afera hauek** (4); **afera honek** (7); **afera honen** (11); **afera honen inguruan** (4); **afera honetan** (20); **afera hori** (41); **afera horiek** (6); **afera horrek** (7); **afera horrekin** (4); **afera horren** (16); **afera horren inguruan** (5); **afera horretan** (20); **afera horretaz** (4); **afera horri** (4); **afera hortan** (28); **afera hortaz** (10); **afera hura** (5); **afera ilun** (4); **afera izan** (5); **afera konpondu** (5); **afera konpontzeko** (16); **afera nola** (4); **afera xifrea** (4); **afera zela** (7); **afera zen** (4); **aferak bere** (4); **aferak ere** (4); **aferak eta** (5); **aferak ez** (16); **aferak ez du** (4); **aferak ez zuen** (4); **aferak gaizki** (4); **aferan esku** (4); **aferan izan** (7); **aferaren gainean** (4); **aferaren inguruan** (14); **aferaren inguruko** (7); **aferari buruz** (11); **aferari buruzko** (6); **arteko afera** (5); **aspaldiko afera** (5); **baina afera** (8); **baita afera** (6); **barne afera** (5); **bere afera** (7); **bere aferak** (4); **beren afera** (4); **bertze afera** (5); **beste afera** (9); **da afera** (34); **da afera bat** (6); **da afera hori** (5); **dago afera** (7); **den afera** (6); **dena afera** (4); **dira aferak** (10); **ditu aferak** (5); **du afera** (23); **duen afera** (8); **dugu afera** (6); **dut afera** (4); **dute afera** (13); **eta afera** (31); **euroko afera** (5); **ez da afera** (8); **harizpeko neskaren afera** (4); **itoizko aferan** (7); **itoizko urtegiaren aferak** (4); **itoizko urtegiaren aferan** (7); **milioi euroko afera** (4); **neskaren afera** (4); **nire afera** (4); **presoen aferari** (4); **urtegiaren afera** (5); **urtegiaren aferak** (6); **urtegiaren aferan** (9); **zen afera** (14); **zer afera** (4); **zuen afera** (26); **zuen aferak** (5); **zuten afera** (5)

---

aferaño *iz adkor* afera xumea.

Behar da ere ikusi boz-emaileak berak ere, gehienak segurik, hautetsi batzu direla eta hautetsien arteko **aferaño** bat izaiten dela beraz. Herria

---

aferatsu *izond* egitekoz betea.

Badabila alabaina jendea, eta ez beti gaztea nonbait gaindi, guk uste baino gehiago gure mundu **aferatsu** huntan. Herria

---

aferatu *izond ipar* lanpetua.

Hainbestenarekin, lanaz arduratzen den ministroa, Jean Louis Borloo, biziki **aferatua** dugu. Herria

Iguzkialde haraindi hartan zeri eta nori fida ote ditake, ikusiz hango erresumak armamendu nuklearretako lanetan hain **aferatuak**, erdi-gordeka bada ere? Herria

Solasak ziren azken ilabetetan Garaziko talde bat ederra arras **aferatua** zabilala, gidari famako batekin, antzerki alai eta eder baten prestatzen. Herria

Karrikan uros eta **aferatuak**, irria ezpainetan. Itxaro Borda

Ikara zen neska, eta bat-batean pasagian hara eta hona **aferatuan** zebiltzan erizainaren bila abiatu zen. Itxaro Borda

---

aferente 1 *izond* zainei edo hodiei dagokienez, erdigunera doana.

Informazio eferentea garunetik sentimen- eta mugimen-organoetara doan nerbio bidezko informazioari esaten zaio; informazio **aferentea**, kontrako zentzuan (organoetatik garunera) doan informazioari; eta informazio erreaferentea, nahita egindako mugimenduek eragindako sentimen-gertaerek emandako informazioari. Josu Zabaleta

2 ***arteriola aferente*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Makula trinkoko zelulen jariatze parakrinoaren eraginez, glomerulura doan **arteriola aferentea** zabaldu egiten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arteria-odola kapilar-sare glomerularrean sartzen da, **arteriola aferente** baten bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Glomeruluetako kapilarrek odola **arteriola aferente** batetik jasotzen dute eta arteriola eferente batera bidaltzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Giltzurrunaren jarduera nagusia nefronan gertatzen da. Nefrona bakoitzean **arteriola aferente** deritzon odol-hodi txiki bat sartzen da eta glomeruluetara odola eramaten du. ETC-entziklopedia

---

aferesi *iz* hitz baten hasierako hots bat edo gehiago galtzea edo ezabatzea.

Beste testu batzuk, berriz, hitz, hots, letra, silaba eta abarren manipulazioetan oinarrituak dira (**aferesiak**, apokopeak, sinkopeak, permutazioak). Xabier Olarra

Hitzak hasierako letrak, tartekoak edo bukaerakoak gal ditzake, baina oraingo honetan **aferesia**, apokopea eta sinkopa dira, hurrenez hurren, hizkuntzalaritzari maileguan hartuko dizkiogun hitz bereziak. Iñaki Arranz

Adibide segida hau amaitzeko, protesia eta **aferesia** -hau da, oihartzun luzatua eta murriztua- elkarren ondotik kateatzen dituen poema dakargu, bere osotasunean, ARTZEri hartuta: [...]. Iñaki Arranz

---

afgandar ik **afganiar**.

---

afgani *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* Afganistango moneta.

Iseka egin zidan, baina: "Begira, nire dirutik hogei **afgani** gastatu ditu gasolina erosteko, eta ez da gai bere buruaz beste egiteko ere", gogoratu du. ETC-prentsa

---

afganiar *(ETCn **500** agerraldi; orobat **afganistandar** **435** agerraldi, **afgandar** **24** agerraldi, **afgano** **21** agerraldi eta **afganistar** agerraldi **1**)* **1** *izond/iz* Afganistanekoa, Afganistani dagokiona, Afganistaneko biztanlea.

Preso ohi **afganiar** batek salatu du Irakeko presoak torturatu zituzten bezala torturatu zutela bera. Berria - Mundua

Nazio Batuen Erakundeak herenegun jakinarazi zuenez, hauteskunde errolda ontzen ari ziren lau langile **afganiar** zauritu ziren, Asadabad hirira zeramatzan autoa lehertuta. Berria - Mundua

Talibanak ez zituzten suntsitu, boteretik kendu besterik ez zituzten egin, eta ondoren talibanak biztanleria **afganiar** arruntaren artean sakabanatu ziren. Berria - Harian

Gainera, zibil **afganiar** bat hil zuen. Berria - Harian

Zaheeruddin Abdulla argazkilari **afganiarrak** Iraken egindako dokumentala aurkeztuko du: *The line of fire*. Berria - Kultura

Bi **afganiar** hil dira meskita batean bonba batek eztanda egiterakoan Afganistanetik etorria zen 80ko hamarkadan, **afganiarrak** errusiarren kontra borrokan ari ziren garaian. Berria - Mundua

Afganiarrak etsita daude, gehienak pobreak direlako heriotza tasa munduko altuenetarikoa da eta gobernuak dirua alferrik galdu duen ustea daukatelako. Berria - Mundua

Uranium Medical Research Center erakundeko zientzialariek **afganistandarren** gernua aztertu zuten eta laginen %100ek uranio zantzuak zituzten, normala den maila baino %2.000 handiagoan, hainbat kasutan. Berria - Gaiak

Mariam Rawi RAWAko Kultura Batzordeko arduraduna Berriarekin mintzatu da Loya Jirga-k emakume **afganistandarrengan** eta oro har gizarte osoarengan izango duen eraginaren inguruan. Berria - Mundua

2 (izenlagun gisa)

Iazko ekitaldikoak dira horietako bost: III, Arrantzan, Xochitl Acatl, Negua eta Txori zaleak; eta 2002ko ekitaldikoak gainerako hirurak: Arkatz zinikoa, Ondarea eta **Afganiar** errefuxiatuak: miseriaren begiak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **afganiar bat** (5); **afganiar bat hil** (3); **afganiar batek** (3); **afganiar hil** (3); **eta afganiar** (3)

---

afganistandar ik **afganiar**.

---

afgano ik **afganiar**.

---

afiliatu, afilia(tu), afiliatzen **1** da/du *ad* elkarte edo elkargo bateko kide egin. ik **bazkidetu**.

Berak dioenez, 81ean **afiliatu** zen PSOEn, baina 82an sartu zela zin egingo lukete besteek. Iban Zaldua

Garai hartan, erlijiosoek ez zuten EAJn **afiliatzerik**. Berria - Euskal Herria

Gu guztiok, larrua salbatu nahi dugun funtzionariook nazionalsozialismora **afiliatzeko** presa izan dugu. Ramon Etxezarreta

LABeko buruzagiek azaldu zutenez, euskal agiriarekin aritzeko aukera ematen du sindikatuak, bai eta **afiliatzeko** hura erabiltzekoa ere. Berria - Euskal Herria

2(era burutua izen gisa)

Buruzagi sozialistak adierazi zuenez, egoitzaren aurkako erasoaren bitartez izua eragin eta **afiliatu** sozialistak beldurtu nahi dituzte. Berria - Euskal Herria

Egun hartan ehun bat Iparraldeko langilek hautatu zuten LAB sindikataren adarra sortzea; gaur egun, bost urteren buruan, 400 **afiliatu** kondatzen dituzte. Herria

"Emakumeak dira sindikatuko **afiliatuen** %30, eta horrenbesteko ordezkaritza izango dute", zehaztu zuen Onaindik. Berria - Ekonomia

Sabino Arana elkargoak jasotako agiriek EAJko **afiliatuek** Venezuelan bizitakoa erakusten dute. Berria - Kultura

Adolfo Ares PSE-EEko Antolakuntza idazkariak euren alderdiko kargu politiko eta **afiliatuei** eskatu die bizkartzainen babesa bertan behera ez uzteko Espainiako Barne Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak besterik esan artean. Berria - Harian

Dajaf erakundearen inkestak dio Likudeko **afiliatuen** %47 Sharonen planaren aurka daudela, %39 alde agertuko liratekeela eta %14 zalantzan leudekeela. Berria - Mundua

Ez duk **afiliatuentzako** plan bat, ezin zaiok horrela deitu, baina sindikatuak ez dik begi txarrez ikusten, urte luzeetako afiliazioa daramaten kideentzat duk. Jon Alonso

Nagusi ginen libertarioak, mila eta gehiago **afiliatu**. Koldo Izagirre

ERC Esquerra Republicana de Catalunyak eskatu die beretzat lan egiten dutenei, **afiliatuak** izan ala ez, alderdia diruz laguntzeko. Berria - Mundua

Ofizio hanitxen arteko deia zen alkarretaratze hori; barne ziren, **afiliatü** ala ez, adar hanitxetako langileak. Herria

PSE-EEren zerrendan Arabako Batzar Nagusietarako aukeratu zuten 2003an, baina ez da **afiliatua**. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
afiliatu eta (7); **afiliatu gehiago** (4); **afiliatu zen** (3); **bi afiliatuk** (3); **die afiliatuei** (3); **eajko afiliatu** (3); **eta afiliatu** (5)

---

afiliazio **1** *iz* afiliatzea; afiliatuen kopurua.

Urte luzeetako **afiliazioa** daramaten kideentzat duk. Jon Alonso

Behin ere ez dugu kontuan hartu laguntza eske bertara hurbildu denaren **afiliazioa** edo kolorea zein den. Berria - Euskal Herria

Zorioneko bigarren autobusa nortzuek geldiarazi duten badakielarik -*Los vascos en el Madrid sitiado* liburuan ez du horien **afiliazioa** emango-, erraza zaio hango atxilotu errugabe biak non diren igartzea. Edorta Jimenez

ELAk, gainera, **afiliazioa** irabazi du. Berria - Harian

Kongresu arteko lau urteetan **afiliazioa** %16 igo du sindikatuak, eta hazkunde hori igarri dute kontuek. Berria - Ekonomia

Langile gehienek ez dute sindikaturik ezagutzen eta herrialde industrializatuetan **afiliazioa** murrizten ari da. Berria - Ekonomia

Boz autonomikoen ondoren 290 **afiliazio** izan genituen, eta marka hori hautsi dugu orain. Berria - Mundua

Afiliazioen marka hautsi dugu otsailean: 600 kide berri baino gehiago. Berria - Mundua

-Espainia Berriaren ikuspuntuak gogoan harturik -errezoan legez ekin nion- izen-abizenez aipaturik datozen hurrengo pertsonen **afiliazio** politikoa eta horiek duten arriskua azaltzen da, arrisku horren kausak adierazita. *Hiru* sindikatuak **afiliazio** kanpainari ekin dio otsailean. Edorta Jimenez

Falangeko **afiliazio** orria txapelaren forruaren barruan gorde eta nire benetako beste orria jakan neramala ziurtatu nuen. Edorta Jimenez

ELAren eta inguruko sindikatuen **afiliazio** datuak erkatu zituen Muñoak. Berria - Ekonomia

Gizarte Segurantzako **afiliazio** datuak eman zituen Azkarragak. Berria - Ekonomia

Azpimarratu behar da **afiliazio** kopuru horretan %13 30 urtetik beherakoak direla eta %31 baino gehiago emakumeak direla. Berria - Ekonomia

Adituek diotenez, **afiliazio** tasa %22 eta 25 bitartean dago gurean. Berria - Ekonomia

Euskal Herriko **afiliazio** maila apala denik ukatu egin zuen ELAko idazkari nagusiak. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
afiliazio datuak (3); **afiliazio orria** (7); **falangeko afiliazio** (5); **falangeko afiliazio orria** (4)

---

afiligranatu *izond* filigranaz egina.

Lau hego izaten dituzte, nerbio txikiz egindako egituran, arotz baten ordez altzari-apaintzaile batek egindako gurtetxe **afiligranatua** balitz bezala, gorputzarekiko proportzioan handiak bi aurrekoak eta txikiagoak bigarren parekoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

afinadore *iz* lanbidetzat musika tresnak afinatzea duen pertsona.

Bost urte lehenago bera saiatu zen afinaziorako gako-doitze lanak burutzen, baina emaitza penagarria izan zen eta orduan bai, egun hartan bertan deitu behar izan zion **afinadoreari**, biharamunean pianoa joko bazuen. Josu Landa

Luxuzkoa eritzita edo, ez zuen **afinadoreak** kobratzen zuen dirua horretan gastatu gura. Josu Landa

---

afinagailu *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* **1** *iz* afinatzeko tresna.

Epiphone SG gitarra elektrikoa salgai, maleta gogorrarekin, **afinagailuarekin** eta Marshall anplifikadorearekin. ETC-prentsa

Era berean, gailu berri horiek telebista, kalkulagailua, **afinagailua**, irratia, termometroa, erlojua, mapak, argazki-kamera, eskanerra, egunkaria, minikatea, iratzargailua, billarra, argazki-albumak, errezetak, nobelak eta abar luze bat ordezka ditzakete. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***afinagailu elektroniko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Musikan, gozagailu elektronikoa edo **afinagailu elektronikoa** musika tresna batekin jotako nota baten tonua erakusten duen gailu elektroniko bat da, afinazio egokia lortzeko. ETC-entziklopedia

---

afinatu, afina(tu), afinatzen du *ad* musika instrumentuez mintzatuz, diapasoiaren arabera doitu.

Biolina **afinatzen** hasi zen, zubia eta hariak bereziki zainduz. Felipe Juaristi

Grazia handikoa dun, ez oso fina, beti gitarra **afinatzen** ari dun, baina grazia din. Jon Maia

Dick Gaughanen kasuan ez dira kantuak bakarrik; **afinatzen** duen bitartean hitzaldi zorrotzak eta ironikoak botatzen ditu eskoziar azentu itxi horrekin. Berria - Kultura

Amaitu zuen itsuak biolina **afinatzeko** ariketa. Felipe Juaristi

Musika kioskoan metal-tresnak **afinatzeko** saioan hasiak ziren. Edorta Jimenez

Afinatu eta joka hasi zen, gustatu egin zitzaion, soinu aparta egiten baitzuen. Felipe Juaristi

Melodikan, tonu naturalean **afinaturik** baitzegoen, re bilatu, eta harriak burdinan ateratako nota bera jotzen zuela baieztatu nuen, harriturik. Juan Kruz Igerabide

Handik gutxira joko dute elkarrekin Komunsoron, "si bemolean" **afinaturiko** Larrinaga-Guerriniekin biak. Iñigo Aranbarri

Harpa txikia atera eta hariak **afinatzeari** ekin zion. Nerbio horiek ezin izaten dira teinkatzez utzi harik eta langilearen belarriarentzat soinu garbi eta **afinatua** ematen duten arte Joanes Urkixo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
afinatzen hasi (3)

---

afinatze *iz* musika instrumentuez mintzatuz, notak diapasoiaren arabera doitzea. ik **afinazio**.

Contrapuntoa fraseatzean maisu-maistrak ziren, **afinatze** zehatzarekin. Berria - Kultura

Gero, salara jaitsi zen berriro, eta biolina hartu eta **afinatze** lanetan hasi zen. Felipe Juaristi

Gero eta maiteagoa zuen Mentxuk piano haiek edukitzen zuten **afinatze** puntu doia. Josu Landa

---

afinatzeke *adlag* afinatu gabe.

Hatzak berotzeke, biolin hariak **afinatzeke**, bi eskuak doblaturik, hatz erdikoa biolinaren kiribilduran ipinirik, itsua jotzen hasi zen bat-batean. Felipe Juaristi

---

afinazio **1** *iz* musika instrumentuez mintzatuz, notak diapasoiaren arabera doitzea.

Biolinari eusten zion eskuetan, eta harien **afinazioa** aztertzen zuen, hatzekin pizzicato leunak eginez. Alberto Ladron Arana

Biolinaren agudoen **afinazioa**. Berria - Kultura

Bost urte lehenago bera saiatu zen **afinaziorako** gako-doitze lanak burutzen, baina emaitza penagarria izan zen eta orduan bai, egun hartan bertan deitu behar izan zion afinadoreari, biharamunean pianoa joko bazuen. maisu bikaina dugu Dick Gaughan gitarran, **afinazioaren** lana ere ikuskizunaren atal garrantzitsu bihurtu arte. Josu Landa

Atsotitz-zalea ere bazen, eta mozkortzen zenean oso gaizki abesten zuen, batere **afinaziorik** gabe, baina hitzei malezia handia erantsiz. Koro Navarro

Lan horretan, Nafarroako abeslariak gorputzaldia, goi teknika, **afinazio** txukuna eta dramatizazio egokia azaldu zituen. Berria - Kultura

Salbuespeneko ahotsak izan gabe, **afinazio** zehatza, *bel canto*-aren jakinduria, entrega eta gustua adierazi ziguten abestaldiaren barrena. Berria - Kultura

Nahiz eta bere ahotsa sasoi onenean ez izan bolumen eta igorpenaren aldetik ahoskera biribila, kantu-lerro adierazkorra, eta **afinazio** eta vibrato politak azaldu zituen Mahlerren *Rückert Lieder*-etan. Berria - Kultura

Taldeko zuzendariak aipatu duenez, "Biberrek **afinazio** teknika berezia erabiltzen du: scordatura". Berria - Kultura

2 ***afinazio pitagoriko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Afinazio pitagorikoan, aldiz, eskusoinuaren aukerak murriztu egiten dira. ETC-prentsa

---

afinitate **1** *iz* motaren bateko kidetasuna.

Agerpenen asoziazio ororen oinarri objektibo honi beren **afinitatea** deitzen diot. Ibon Uribarri

Euskal Herriko Unibertsitateak ikerketa abiatu du Hernanin hil zituzten guztien izen-abizenak jakinarazteko, baita nola bizi ziren, non lan egiten zuten, non atxilotu zituzten, **afinitate** politiko eta sindikalak eta abar. Berria - Euskal Herria

Hemoglobinak **afinitate** handia du oxigenoarekiko, eta odolean dagoen hemoglobina kantitate apalak (kilogramo bat in-guru) bizi-prozesu guztiei eusteko adina oxigeno garraiatzen du. Irene Aldasoro

Oinarri-esakune honen bitartez, beraz, gauza bakoitza korrelato komunarekin harremanean jartzen da, hots, ahalgarritasun osoarekin, zeinak (h[au] d[a], predikatu ahalgarri ororentzako ekaiak), gauza bakarraren ideian aurkitzen bada, gauza ahalgarri ororen **afinitatea** frogatuko lukeen bere determinazio osoaren oinarriaren identitatearen bitartez. Ibon Uribarri

2 ***afinitate elektroniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **104** agerraldi)*

Afinitate elektronikoa (Eea) gas egoera neutroan eta energia maila baxuenean dagoen atomo orok elektroi bat bereganatzean askatzen duen energia da. ETC-entziklopedia

Energia-aldaketa horri elementuaren **afinitate elektronikoa** deritzo, eta hori ere ederki neurtzen da elektronvoltetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kalkuluek frogatuko dutenez, oso modu konplexuan eta periodikoan aldatzen dira, bai ionizazio-potentziala, bai **afinitate elektronikoa**, bai atomoaren tamaina. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

afirmatu, afirma(tu) , afirmatzen du *ad* baieztatu.

Ni ere, **afirmatzen** ari naizenean galdetzen ari naiz. Anjel Lertxundi

Ez nuen ulertzen, halaber, nola aita sainduak erabaki zezakeen Erromako eliztarren sinestea eta pentsua goitik behera, nola erraiten eta **afirmatzen** baitzuten katolikoek. Joan Mari Irigoien

Lehen erran dizut ezen aitari guztia sinetsi niola, noiz eta **afirmatu** baitzidan ezen hain zirela dukeak, kondeak eta gainerako handikiak arraza berezikoak eta ohiz kanpokoak, non kaka ere urrezkoa egiten baitzuten. Joan Mari Irigoien

Bizitzak anitzetan erakutsi izan dit ezen ez dagoela itsu handiagorik ikusi nahi ez duena baino, eta ez nintzateke sobera harrituko, baldin norbaitek **afirmatuko** balit ezen irakasle haiek itsuen sorta hartakoak zirela. Joan Mari Irigoien

---

afirmazio *(ETCn **83** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **baieztapen** eta **baiezko** agertzen dira) iz* baieztapena.

Pentsio bateko balkoi batetik ezin da halako **afirmazio** erabatekorik egin. Unai Elorriaga

Euskaldunen egunkariaren itxiera zuen hitz egiteko aitzakia, eta ezin gehiagoraino harritu ninduten Solé jaunaren esanek, nik nere jardunean erabilitako batzuen oso antzekoak baitziren (mapa, identitatea...), baina guztiz kontrako heldulekutik harrapaturik, hots, **afirmazio** nazionalaren alderditik. Iñaki Segurola

Bere biluztasuna indartsua da, bere biluztasuna **afirmazio** bat da. Berria - Kultura

Euskal kulturak **afirmazioa** den ukazioa du sustraitzat. Berria - Harian

---

afitxa ik **afixa**.

---

afitxatu ik **afixatu**.

---

afitxe *(ETCn **30** agerraldi) iz* zerbaiten berri emateko edo publiziatea egiteko erabiltzen den horma iragarkia. ik **afixa**.

Dexente denbora pasatu zen [...] handik urte batzuetara auto garaje batean Bibendum deituriko irudia **afitxe** batean. Joxemari Iturralde

Hasieratik erabilitako **afitxeak**, bideo-zinta bat eta diapositibak argitaratu eta ikusgai jarriko ditu. Berria - Euskal Herria

Elgarretaratze hortarat deitzen zuten **afitxetan** irakur zitaizkeen "Maitasunak sustaturik" hitzak. Herria

Esku-soinua elementu ohikoa da XIX. mende amaierako **afitxetan**, eta esan liteke Pariseko funtzionarioek Senako bazterretan egiten zituzten erromerietan esku-soinua zutela beti aldamenean, pintaturik ikusi zuen arte. Koldo Izagirre

afixa *(ETCn **2.110** agerraldi; orobat **afixe** **10** agerraldi)* **1** *iz* zerbaiten berri emateko edo publiziatea egiteko erabiltzen den horma iragarkia. ik **afitxe**.

Ez oharrik, ez **afixarik**, ez oroigarririk. Alberto Barandiaren

Orain, aldiz, **afixa** horietan zein izenez agertuko zen erabakitzeko ordua heldu zitzaiola ohartu zen Joselu. Josu Landa

Taularen gainean **afixa** bat zegoen, soldadu kaskodun baten irudiarekin. Anjel Lertxundi

Hara non ikusten duen leiho batean ezarritako **afixa** batean: "Gela zatia alokagai". Pablo Sastre

"Barzina eta Grenetek entzun gaitzatela" lema daukan **afixa** bat hedatzen hasia du Baionan Euskal Herrian Euskaraz elkarteak egun hauetan. Herria

La metro muove la città (Metroak hiria mugitzen du) dio **afixak**. Anjel Lertxundi

Salgai, zioen **afixak**. Harkaitz Cano

Beste xehetasunentzat ikus **afixak**. Herria

Goitik zintzilik haizemaile zuriak biraka, Bogart-en argazkiak eta **afixak** paretetan. Xabier Montoia

Matrix filmaren **afixak** betetzen du dena. Antton Olano

Nekazari ezjakin batek ezin zituen **afixak** irakurri susmagarri bilakatu gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gazte andana batek arrandegi izandako hartatik kontzertuetako **afixak** kendu dituzte. Eider Rodriguez

Horma behinola zurietan aspaldiko zezenketetako **afixa** pare bat, mostradore txikiaren bueltan lau aulki, eta barruraxeago mahai pare bat. Unai Iturriaga

Erizainak Isiltasuna eskatzen duen **afixan** iltzatu ditu, atzamar erakuslea ezpainetara eramanez. Urtzi Urrutikoeetxea

Pasaiako kaleak eta hormak **afixaz** beteta zeuden, Hernaniko Young Play dantzalekuan jokatzekoa zen boxeo lehia iragarriz. Harkaitz Cano

1978ko udazkenean, Konstituzioaren erreferendumean abstenitzeko deia egiten zituzten **afixak** pegatzen ari zela, inkontrolatu talde batek Ander harrapatu eta bortizki jipoitu zuen. Berria - Euskal Herria

Bidean, zezenketen **afixak** ugalduz doaz eta, horiek sarriago ikustean Bilboko publiko gupidagabearen jarrera odolzaleaz idatzi zuena etorri zaio gogora Ernest Hemingwayri. Edorta Jimenez

Eskuak kola lodiz apaindurik, **afixetan** agertzen ziren ezkerreko zein eskuineko hautetsien irri mardul eta faltsuak jasan behar genituen ondorioz, gohainak gontzetarik jauzarazi arte. Itxaro Borda

Nesketako batek horman zeuden **afixetako** bat seinalatu zuen algaraka. Anjel Lertxundi

Afixetako batzuk euskaraz dira. Edorta Jimenez

Joanden aste ondarrean hasi dira murru paretak eta saltegietako mahainak, Benito LERTXUNDI kantariaren argazkiz eta **afixez** betetzen. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zehazkiago, **afixa** ikusgarri haien atzean zeuden ideia ustelak izan ziren hiri eder hartako karrikak infernu bilakatu zituztenak. Alberto Ladron Arana

Argazkiak, urrutitik ateratako fotoak, ez zuen informazio gehiago eransten: jendetza zuhaitz tantai artean, **afixa** handi baten aurrean. Iñigo Aranbarri

Gogoan ditut aldizkari ilustratu baten hiruzpalau ale; azken urtean Milanera bitan joan zela adierazten zuten bi tren-txartel; baita hainbat pelikulen **afixa** txiki koloretsuak ere, tartean Shangai Express filmarena. Anjel Lertxundi

Orduan, lehen aldikotz, ikusi genituen Baiona hirigunean eta iparraldeko hirietan alimaleko **afixa** batzu eta elgarretaratze handi batzu euskararen alde. Herria

Lehenengo solairuan musika eskola bat zegoela irakurri zuen plastikozko **afixa** batean. Aritz Gorrotxategi

3 (hitz elkartuetan)

AFIXA LEHIAKETA. Herria

Afixa puskak daude oraindik itsatsirik oholetan. Monika Etxebarria

Afixa moldadüra, 40 X 60 heinean egitekoa, egilearen izen eta beste xehertarzüneki, Züberoako Hondarearen Etxean üztekoa da, dagün martxoaren 31 ko, berantenik. Herria

"Antso Handia pastorala" alkarteak **afixa** moldatze primaka bat plantatzen dü, nahiant ororer zabalik. Espaloiaren bi muturretan, antzerki **afixez** beteriko bi iragarki zutabe zeuden, karratu berde, hori, gorri, urdinez estalirik, arlekinen antzera jantziak. Herria

Odeonsplatzetik urruntzen nintzen bitartean, onartu behar izan nuen neure baitan ere bazeudela propaganda **afixetakoak** bezalako sentimenduak eta zirrarak, eta asaldura bortitzak. Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
afixa bat (9); **afixa batzuk** (3); **afixa ere** (3); **afixa handi** (3); **duen afixa** (3); **zioen afixa** (4); **zuten afixa** (4)
afixak ikusi (3); **dio afixak** (3); **zioten afixak** (4)
duen afixan (3)
lehendakaria eta afixaren (3)

---

afixapen *iz* afixatzea.

Parropia osoko **afixapena** antolatu. Herria

---

afixategi *iz* afixa biltegia.

Denek begiratu zioten **afixategiari**. Pedro Alberdi

Afixategian, itsasoan ageri ziren hirurak, luxuzko itsasontzi batean etzanik. Pedro Alberdi

Titulua bat zetorren **afixategiko** argazkiekin: "Eguzki galdatan". Pedro Alberdi

---

afixatu, afixa(tu), afixatzen du *ad* afixean jarri.

Bozka horien araudiak beren lantegietan **afixatuko** dituztela hitzemana dute enpresa buruek. Herria

---

afixe *iz* afixa.

Ahazturaren horma mehe zurian, bizpahiru oroitzapenen **afixe** higatuak, horma zuriari abesti-puntapaxez doi-doi erantsita: hautsi da anfora, *let it be, get back.* Joxerra Garzia

---

afixu *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* *iz* hizkia. ik **morfema**.

Hizkia edo **afixua**, hitzetan txertatzen diren unitateak haien esanahia aldatuz. ETC-entziklopedia

Batzuetan, hitz eratorrietako eremu semantiko baten barruan, hitz bat beste baten eratorria dela esan daiteke bigarren hitz hori **afixu** eratorrietatik abiatuta sortu ahal bada (eta, agian, **afixu** flexiboren bat kenduta). ETC-entziklopedia

Haren ustez, terminoak osatzen dituzten osagaiak hiru mailatan ikus daitezke: hitz-elementuak (erroa, **afixua**, atzizkia, aurrizkia eta desinentzia), hitzak (erro-hitza, hitz elkartua, eratorria) eta hitz-taldea (hitz ortografiko batez baino gehiagoz osaturikoak). ETC-entziklopedia

---

afizino ik **afizio**.

---

afizio *(ETCn **1.310** agerraldi; orobat **afizino** g.er. eta **afizione** g.er.)* *iz* zaletasuna.

Afizio eta enpeinu gehiago azaltzen ditu, normalean, ilberriarekin. Pello Zabala

Ane zirikatzea **afizio** baino obligazio bihurtua zen haren inguruan zebiltzanentzat. Unai Iturriaga

Pentagrama artean hazi dira; krako, konpas eta abarrekin borrokan eta jostatzen, eta hemendik aurrera, **afizio** ez ezik, ofizio ere izan nahi dute musika. Berria - Harian

Gure literatura antzinakoa, horixe du **afizio**. Hasier Etxeberria

Ea zeuei **afizio** pixka bat kutsatzen dizuedan kontu hauek denak medio. Pello Zabala

Ez zioten **afizio** handiegirik. Pello Zabala

Umeetan gazteena zen Pio, senide guztietan bizikletarako **afizio** handiena zekarrena. Xabier Etxabe

Guztiak ez zituen gustukoak izan, noski, baina gehienak bai, eta **afizio** berriari lotu zitzaion gero eta gogo handiagoz. Iban Zaldua

Gaur egun gazteriak **afizio** errazak bilatzen ditu. Berria - Kirola

Plazan bertan geratzen nintzen, beste mutiko batzuekin futbolean; lehenengo bi ikasturte haiek gainditu nituen, baina, nire **afizio** eskasa ikusita, utzi egin nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Egungo lehendakariak gogoratu du aita zela ezer baino lehenago "ni edo zu bezalakoa", eta ez zuela **afizio** berezirik, lana baino ez. Berria - Euskal Herria

Ongi bazekien **afizio** berezi eta arraroa zela: bere herrian, Asia osoan bezala, edonork berritasuna nahiago zuen. Ramuntxo Etxeberri

Gaztetan sagardoa eta bertsoa elkarrekin lotuta zihoazela du gogoan, eta batez ere, kanturako **afizio** gehiago zegoela. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **afizio handia** (4); **afizioa ofizio** (4); **bere afizioa** (3)

---

afizionatu, afiziona(tu), afizionatzen **1** da/du *ad* zaletu.

Dena den, halaxe **afizionatu** gintuan Tanqueray-arekin. Iban Zaldua

2 (era burutua izenondo eta izen gisa)

Etimologista **afizionatu** gehiegi dago hemen, hori da gure zoritxarra. Iñaki Iñurrieta

Joan den apirilean ekin zion Asegarcek pilotari **afizionatuak** eta profesionalak jaialdi berean nahastuta jarri eta funtzioak antolatzeari. Berria - Kirola

Esku-huskako pilotari **afizionatu** ohiak urtebete pasatxo baino ez du egin erremonte eskolan. Berria - Kirola

Afizionatu afizionatua zen, afizioa zuelako jotzen zuen trikitixa oso pertsona gozoa zen berarekin berriketan aritzeko. Hori duk benetako zaintzailea, hori duk benetako detektibea eta ez ni bezalako **afizionatuak**, bururatzen zitzaidan beti eskaileretan gora jotzen nuenean. Berria - Kultura

Gomez bere kabuz aritzen zen orain arte **afizionatuen** taldea zuzentzen. Berria - Kirola

Oraindik nabari du txapeldunenetik hasi eta **afizionatuetan** dabiltzan gazteetara iritsi arte. Patziku Perurena

Hala diote segurik **afizionatu** batzuk. Herria

Beraz, **afizionatu** eta profesionalaren arteko artista baten aurrean gaudela dirudi erakusketako hiru geletan gabiltzanean. Berria - Kultura

3 *izond/iz* pilotan eta, profesionala ez dena.

Auerdi aldera herri bazkaria egingo dute kiroldegian, dantzarako eta festarako indarrak hartuko dituzte dantzari profesionalek eta **afizionatuek**. Berria - Kultura

Realak Covaledatik itzuli aurretik Piqueras talde **afizionatuaren** aurka jokatuko du, gaur, denboraldi-aurreko lehen partida. Berria - Kirola

Carlota Ziganda nafarrak Europako **afizionatuen** golf txapelketa irabazi du. Berria - Kirola

Ez profesionaletan, ezta **afizionatuetan** ere inoiz ez du buruz buruko partidarik jokatu, **Afizionatuetako** taldeekin aurrena (Gas Euskadi, Banaka, Ripolin...), profesionaletan gero, pausoz pauso. Berria - Kirola

Afizionatuetako urte gozoen ostean, astelehenean profesionaletan jokatzen hasiko da, Tolosan, Auxkinekin bera, Baleztena eta Galarza VI.aren aurka. Berria - Kirola

Puntako **afizionatuetatik** profesionaletara dagoen aldea handia al da? Berria - Kirola

Etorri diren gazteak ezagutzen genituen **afizionatuetatik**. Berria - Kirola

Talde profesionala osatzea ezinezkoa balitz, **afizionatuen** mailako talde indartsua sortzea litzateke Baqueren helburu behinena. Berria - Kirola

Baldan jokatzeaz aparte, 'Donostia Hiria' **afizionatuen** arteko punta txapelketako partida bat ikusteko aukera izan zuten. Berria - Kirola

Afizionatuetan, 15-20 txirrindulariko multzoetan, kontrariorik ez nuen. Berria - Kirola

Afizionatuetan, brontzezko domina lortu zuen Munduko Txapelketan. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan)

11 urte egin dituzu **afizionatu** mailan. Berria - Kirola

Inolako baimenik gabe, **afizionatu** mailako pilotariekin jaialdi profesionalak antolatu izana. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **afizionatu eta** (3); **afizionatu mailako** (41); **afizionatu mailako berria** (3); **afizionatu mailako emaitzak** (13); **afizionatu mailan** (19); **afizionatu mailan ere** (3); **afizionatuak berria** (8); **afizionatuak berria txapelketako** (3); **afizionatuak eta** (3); **afizionatuak eta profesionalak** (3); **afizionatuak gravn txapelketaren** (3); **afizionatuak kluben arteko** (3); **afizionatuen arteko** (4); **afizionatuetan ere** (3); **afizionatuetatik profesionaletara** (3); **eta afizionatu** (5); **pilotari afizionatuak** (3); **zen afizionatu** (3)

---

afizione ik **afizio**.

---

afiziozko *izlag* afizioari dagokiona.

Ofiziozko eta **afiziozko** aktoreak elkartu eta ikusle gehiagorengana heldu nahi dute antolatzaileek, hiru eguneko egitarauarekin. Berria - Kultura

Ofiziozko eta **afiziozko** antzerkilarien topagunea, adin ezberdinetako ikusleriaren topagunea. Berria - Kultura

Hiru eguneko egitarau batean, 11 ikusgarri, horietatik 6 ofiziozko jokolariek emanak eta gainerateko 5ak **afiziozko** aktoreek aurkeztuak. Berria - Kultura

Ondorengo oharrok ez dira izango irakurzale batek **afiziozko** irakurketa libreetan -ez sistematikoak-, urteetan zehar, aspalditxo gehienak, gustu lukeen baino usuago, aurkitu izan dituen adibideen oroitzapen mortxaka besterik Joxe Azurmendi

---

afliktibo *izond* aflikzioa dakarrena.

Germaniarren legeen espiritua diru-zigorretan ageri da, eta garailearena zigor **afliktiboetan**. Iñaki Iñurrieta

Halaber, zigor **afliktiboa**, merezi zuten kasuetan, leundu egin zen, bailiak bi gizon letratu hartzeko zuen betebeharraren bidez. Iñaki Iñurrieta

XX. mende erdiraino indarrean iraun duen Espainiako XIX. mende amaierako kode penalean hauek ziren zigor **afliktiboak**: "confinamiento, prisión mayor, presidio mayor, extrañamiento temporal, relegación temporal, reclusión temporal, extrañamiento perpetuo, relegación perpetua, reclusión perpetua, cadena perpetua, pena de muerte."Aldeak daude, baina guztiek ere larrua oso dutenentzat asmatuak dirudite. Koldo Izagirre

---

aflikzio *(corpusean **aflikzione** soilik) iz* atsekabea, nahigabea. ik **ondiko**.

Eta haren begietako beira hezean hain nabari egin ziren sufrimendua eta **aflikzionea**, non besarkatzeko gogoa etorri baitzitzaidan. Joan Mari Irigoien

Baina, hartaz hitz egin aitzin, derradan ezen neure **aflikzionearen** erdian Piarres Oihartzabal kapitainaganat joan nintzela, kontseilu eske. Joan Mari Irigoien

---

aflikzione ik **aflikzio**.

---

afoinu *iz* lurrun-modukoa.

Halako itxitura **afoinua** eta intsentsu usaina nahasirik, ahaztuta neukan zirrara bitxiak liluratu nau. Txillardegi

Hantxe, pabiloi hartan, bederatziehun kilometro luze jasan ondoren (Senideek asteburuetan antolatutako autobusetan eginak), ezkerreko bisita-gelatxoko **afoinuan** egoten zen Ixaskun leiala. Txillardegi

---

afoinutsu *izond* afoinuz betea.

Izotzak bete zuen bat-batean auto-barru **afoinutsu** kiskalgarria. Txillardegi

---

afonia *iz* ahotsa galtzea, ahots galtzea.

Egunez egun, bat utzi gabe, ia 800 egun jardun nintzen haietan, osasuna ere lagun izan nuen sasoi hartan, gerora **afoniak** penatuko ninduen arren. Pello Zabala

Boskotearen bateria jotzailea ezin izan etorri (teklatuetan sanpleatu ziren erritmoak), kantariak ez zuen ahotsik (**afoniak** jota), desafinazioa iraunkorra zen bere eztarrian eta teklatuen soinuak (bi musikari aritzen ziren lan honetan) oso oinarrizkoak gertatzen ziren. Berria - Kultura

Ahotsa nekatuta, **afonia**? Berria - Kultura

---

afoniko *iz* ahotsik gabe gelditu den pertsona.

Oholtzak 500 metro koadro hartzen du, eta opera, musika klasikoa, antzerkia edo beste edozein ikuskizun hartu dezake, eta hala ere mikrofonorik gabe ere erraz asko entzun litezke **afoniko** baten azalpen guztiak. Berria - Kultura

---

aforatu 1 *izond* foruduna, forupekoa.

Carod-Rovira **aforatua** dela gogoratzen du eta haren kontrako kereila guztiak artxibatzea erabaki du. Berria - Euskal Herria

Kereila EAEko Auzitegi Nagusian jarri zuen, hirurak **aforatuak** zirelako. Berria - Euskal Herria

Horretarako, honako aitzakia erabili dute: erakundeak "izaera **aforatua**" izatea. Berria - Ekonomia

Zorrrilaren ordezkoa izango da hiru **aforatuak** epaitzeko eskumena izango duen aretoko presidentea. Berria - Euskal Herria

Zubimendik urtarrilean bere parlamentari eskainuari uko egin zionean bere **aforatu** izaera galdu zuen. Berria - Euskal Herria

Bere **aforatu** baldintza zela eta orduko eskaera hartan ez zen Zubimendiren atxilotze agindua agertzen. Berria - Euskal Herria

2 ***matraze aforatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Matraze aforatua edo bolumetrikoa kimika laborategian kontzentrazio jakineko disoluzioak prestatzeko erabiltzen den beirazko flaskoa da. ETC-entziklopedia

---

aforismo *iz* esaera, esakunea.

Aforismo [...]: Jakituria aurredigeritua. Xabier Olarra

Antonio Porchia poetaren **aforismo** bat etorri zitzaidan akordura orduantxe, eta esan egin nien: "Bi milioi izar ez dira begira dagozkien bi begi besterik". Karlos Linazasoro

Garia lastotik bereizten baino zailago da asmatzen noiz den burutazio bat **aforismo** eta noiz txiste soil. Joxerra Garzia

Aforismoaren eta erran laburren jeneroa gorenera eraman zuen pentsalaria. Harkaitz Cano

Artean bezala, ordea, George Orwell-en **aforismoa** baliatuz esateko, berdinik gabeko lan horien guztien artean, batzuk berdinik gabeago dira. Juan Garzia

Apunte hauek txinparta modukoak dira, ez dago **aforismoetako** biribiltasun eta sakontasun hori. Berria - Kultura

Vienan ezagutu nuen; **aforismo** eta paradoxa esaka ibiltzen zen. Koro Navarro

Oso liburu bitxia da, puntuazio numeriko bidez ordenatutako **aforismo** laburretan dago idatzita. Askoren artean

Latinezko **aforismo** ezaguna. Patxi Ezkiaga

Buruaren homeopatia da **aforismoa**; *similia similibus curantur;* esplikaezina ez esplikatuz ulertzen da. Berria - Kultura

Aforismoak ateraldi dibertigarriak dira Petanentzat. Berria - Kultura

Esan zezakeen, esate baterako, beste **aforismo** batzuen gaineko **aforismoak** direla liburu honetako pieza gehienak: meta-**aforismoak**. Joxerra Garzia

Lichtenberg **aforismo**-egileak esango zukeen bezala, legez kanpoko moneta edo txanponaren antzeko zerbait zen: erabili ahal zen etxean, eta baita elizan ere hainbat alditan; baina ez eskolan, epaitegian edo, oro har, bizitza publikoan. Bernardo Atxaga

Bi **aforismo** liburu plazaratu ditu Igerabidek: 'Egia hezur' eta 'También las verdades mueren'. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aforismo eta** (4); **beste aforismo** (3)

---

aforismogile *iz* aforismoak egiten dituen idazlea.

"Kritikaria zirujaua da; **aforismogilea**, berriz, psikologoa". Berria - Kultura

---

aforo *(corpusean ez dago; ETCn **72** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **edukiera** eta **neurketa** agertzen dira)* **1** *iz* areto baten edukiera.

Eta mikrotik aldentzen bazara, arazoak izanen dituzu **aforo** handiko antzokietan, ulertzen? ETC-literatura, saiakera

Arriaga antzokiko **aforo** erdia bete zen bakarrik. ETC-prentsa

Pilotak eragozpen handi bat dauka kirol masiboa izateko: pilotalekuak nahitaez **aforoz** edo edukieraz oso murritzak direla. ETC-prentsa

Hiru mila entzulerentzako **aforoa** zuen Buenos Aires antzokia mukuruz mukuru bete zen. ETC-prentsa

Bi banku handienek hasitako tokian amaitu zuten eguna, Antzokiko **aforoaren** pare. ETC-prentsa

Bilboko Udalak Kafe Antzokiari isuna jarri dio eta hilabete baterako itxi du, **aforo** arauak hausteagatik; zehazkiago, jende kopurua nabarmen gainditzeagatik (ia 500 lagun gehiago baimendutakoa baino!). ETC-prentsa

Horrela, Euskal Herriko orkestrek ahotsentzako prestatuago dagoen Arriaga batetik eszenatoki eta **aforo** handiagoko aretoetara egin dute jauzi. ETC-prentsa

Adituen ustez baldintza guztiak eman ziren horretarako: 800 laguneko **aforoa**, eszenatoki paregabea eta bertsotarako giro ederra. ETC-prentsa

Saioa hasiera batean 700 laguneko **aforoa** duen Behar-Zana pilotalekuan egitekoa zen, baina sarrera salmenta handiaren ondorioz tokiz aldatu zen; Olaederra kiroldegia ere soberan bete zen. ETC-entziklopedia

Ia hilabetero egiten dituzten saioak dira eta sarrera guztiak agortzea lortzen dute gehienetan, 3.000-7.000-ko **aforoa** betez. ETC-entziklopedia

2 *iz* elementuen kontaketa.

Edo begiratu, adibidez N1eko **aforoak** Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean, eta ikusiko duzue nola azken 7 urteetan kamioi kopurua eguneko 5000-7000 unitatetan gehitu den. ETC-prentsa

Azken zubia Nerbioi ibaiko **aforo** estaziora iritsi aurretik zeharkatuko dugu. ETC-prentsa

Eta begiratu, adibidez, N1-eko **aforoak**. ETC-prentsa

132711 Errepide-sareko **aforo**-plana eta eskariari buruzko beste datu batzuk ETC-zientzia, zuzenbidea

Aforo eta pisatze estazioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aforodun *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *izond* aforoa duena.

Bostehun laguneko **aforodun** aretoan baziren beste hainbeste, atze-alboetan tente, edo erdiko eta aurreko pasilloetan eserita, halako trinkotasunez, non indibiduoz osaturiko batura baino areago zirudien mihise erraldoi bat, aingeru esterminatzailearen eztenak pikartatua. ETC-literatura, saiakera

---

afotiko *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)* **1** *izond* eguzkiaren argia jasotzen ez duena.

Jakina, argiak ez du zuzenean eragiten animalien gainean, zeren animaliak printzipioz berdin bizi bailitezke alde fotikoan edo **afotikoan**, baina, ekoizpen primarioa soilik alde fotikoan egongo da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ozeanografia da ekosistema mota hauen ikasketaz arduratzen den zientzia. Argitasunaren arabera, bi motatakoak izan daitezke: Ekosistema fotiko edo **afotikoak**. ETC-entziklopedia

Argiaren muga 80 eta 100 metro arteko sakoneran dago, eta eremu fotikoa (argia duena) eta **afotikoa** (argirik gabea) banatzen ditu. ETC-entziklopedia

2 ***zona afotiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

"Vampyroteuthis infernalis" **zona afotiko** edo ur sakoneko zefalopodo txikia da. Vampyromorphida ordenako kideen artean, bizirik dagoen bakarra da, beraz bitxitasun filogenetiko bat da. ETC-entziklopedia

---

afrantsesatu **1** *izond* frantziar hizkuntza eta kulturaren ezaugarriak hartzen dituena.

Kaperakoak latinaren ahoskera klasikoa erabili zuten (oso ohikoa bihurtu da musika honetan latin **afrantsesatua** erabiltzea, baina ez dauka aparteko garrantzirik). Berria - Kultura

2 *iz* frantzesak imitatzen dituen pertsona.

Basileako Ituna eta Konbentzioko gerra (**"afrantsesatu** giputxen kontu hori, ezagutuko duk..."). Anjel Lertxundi

---

afrasiar *izlag* Afrikan eta Asian kokatzen dena.

Zibilizazioaren egunsentia baino lehen, **afrasiar** estepa (Sahara eta arabiar basamortua) ongi ureztaturiko belardia zen. Iñaki Mendiguren

---

afrikaans *iz* Hego Afrikan minzatzen den hizkuntza germanikoa.

1976ko ekainaren 16an **afrikaans** hizkuntzan "zapaltzailearen hizkuntzan", beltzen hitzetan hitz egiteari uko egiten zion ikasle talde batek ibilaldia antolatu zuen. Berria - Mundua

Afrikaansezko idazleen PEN Klubari ukatu egin diote ofizialtasuna, eta Haitiko taldeak datorren urtean eskuratu beharko du, ez duelako aurkeztu beharreko dokumentazio guztia aurkeztu. Berria - Kultura

Afrikaans hizkuntzaren aldaera. Oskar Arana

---

afrikaerditar *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)* *izlag/iz* Afrika Erdiko Errepublikakoa, Afrika Erdiko Errepublikari dagokiona; Afrika Erdiko Errepublikako biztanlea.

Bidaiari guztiak kongoarrak eta **afrikaerditarrak** ziren. ETC-prentsa

Tropak bidaltzeko erabakia justifikatze aldera, **afrikaerditarrek** azken hilabeteetan pairatu duten "egoera kaotikoa" nabarmendu du NBEko idazkari nagusi Ban Ki-moonek. ETC-prentsa

Jendea itsasoa gurutzatzera ausartzen da, beren etxeak baino seguruagoa delako: berdin dio siriarrak, irakiarrak edo **afrikaerditarrak** diren. ETC-prentsa

Azaroaren 3a - Jean-Jacques Demafouth, **afrikaerditar** politikaria eta militarra. ETC-entziklopedia

---

afrikaner *iz* XVII mendearen bigarren erdialdean Hego Afrikan kokatu ziren holandar kolonoen taldeko kidea.

Hego Afrikan idealismoaren txinparta hori itzali egin zuen, 1910ean Batasuna ezarri ondoren, **afrikanerren** holandar nazionalismo estu eta bortitzaren erupzioak, bantu, indonesiar eta indiar jatorriko hego-afrikar herrikideen gain bere agintea ezarri nahi zuelarik, ez kultur edo erlijio-nagusitasunean oinarrituz, arraza-nagusitasunean baizik.

Iñaki Mendiguren

Apartheidaren aurkako beltzak sistema hura bultzatu zuten zuri **afrikanerrekin** kolono holandarren ondorengoak aliatuta daudelarik, Apartheidaren kontrako kolono ingelesen ondorengoek DA sostengatzen dute bereziki. Berria - Mundua

Gaztaroa liburuan, (Mondadori, 2002) **afrikanerren** arazoa protagonistaren nortasun-moldatzaile gisa azaltzen da. Berria - Kultura

Eskuinetara, **afrikaner** bikote bat, biak edadetuak: Tante Miems eta Oom Koos izenez agurtzen ditu Lucyk; laguntzaile txiki bat daukate, mendi-txano bat buruan jantzita duena; ez ditu izango hamar urte baino gehiago. Oskar Arana

---

afrikanista *izond* Afrikaren aldekoa.

Imajina, beraz, Unamuno-ren "desbideratze **afrikanistek**" zer grazia egingo zioten: Espainia, ez Europa, baina Afrika dela, edo afrikartu egin behar duela, eta antzekoak. Joxe Azurmendi

---

afrikano 1 *izond/iz* afrikarra.

Teologoen zaindari dugu Agustin Gotzain **afrikanoa**. Pello Zabala

Gaztel hegoa edo gaztel haizea deitzen diogun horri, edo hego andaluziar eta **afrikanoari**. Pello Zabala

Esan beharra dago bat oso bilbotarra, oso euskalduna, oso española, oso **afrikanoa**, oso japonesa edo holako oso edozer-gauza izanik, ez dagoela unibertsaltasun horrentzako leku izpirik. Iñaki Segurola

Esplika biezagu, nola mendebaleko ia teologia eta filosofia guztiak eta tradizio moral guzti-guztia ekibokatu diren: ez aspaldiko San Agustin hura bakarrik, **afrikanoa**, baizik Kant razionalista eta Hegel idealista protestanteak ere bai Ipar Europan, eta San Tomas eskolastikoa eta Maritain pertsonalista katolikoa halaber. Joxe Azurmendi

Munduko musikak (okzitanoa, zeltikoa, galizianoa, **afrikanoa** ...), bertsulariak (Sebastian Lizaso, Amets Arzallus...). Herria

Afrikano beltzen eta Amerikano beltzen arteko tirabirak eta ezin jasanak erakutsiak dira hor. Herria

Miseria horren lekuko, aste undar huntan Baionako portuan gelditu den Konstantinos itsasuntzia, sufrez betea eta... sei **afrikano** klandestinorekin, Bolikostatik ihes joanak. Herria

2 (izenlagun gisa) *ipar*

Nima izeneko **Afrikano** neskatxa gazte eder bat. Herria

Badu bi urte entseatzen dela **Afrikano** herrien batasun baten moldatzerat, OUA delakoaren plazan. Herria

Larunbat aratseko 8.30etan, kontzertu eder bat eskainia izanen da Luhuson: Beñat Achiary eta Iatxar taldea, Batoula Mpaka **afrikano** dantza taldea, Peruko Amaru taldea, Amazoniako dantzak, Ines Machado portuges kantaria. Herria

Helburua zuen zerbeiten egitea, Senegaleko Sadio aldean bizi diren **afrikano** adixkideen laguntzeko. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **afrikano dantzak** (3); **afrikano herri** (3)

---

afrikar 1 *izlag/izond* Afrikakoa, Afrikari dagokiona; Afrikako biztanlea.

Afrikar tribu haietako kideek zioten bezala egia bazen argazki makinak arimak lapurtzeko tresnak zirela, arima erdia salbu zeukan oraindik. Harkaitz Cano

Bere azken lanean *Fight to Win*-en, **afrikar** batasunaren aldeko aldarria egiten du. Berria - Kultura

Topikoa da esatea **afrikar** herriak, adibidez, Mendebaldeko europar herriek mila urte edo gehiagotan lorturiko politika-, gizarte- eta kultur mailako aurrerapena belaunaldi batean edo bitan lortu nahian zebiltzala. Iñaki Mendiguren

Bereziki ikusi da hor **Afrikar** herri pobreetan berotze horrek nolako ondorioak izanen dituen. Herria

Lehen Mundu Gerraren bezperan, **afrikar** estatu bakarra zen independentea, Etiopia. Koro Navarro

Harresi-oihalen kontra, **afrikar** emakumeak bere adatsaren masa bihurrikatuak bermatzen zituen. Juan Garzia

Liburu honek frogatzen du, duela 2 milioi urte **afrikar** antropoideak ginela denak, eta duela 300 milioi urte anfibioak ginela denak. Joseba Sarrionandia

Gerra anglo-germaniar honek, munduaren ekialdeko **afrikar** bihotzean zertuak, berekin ekarri zituen bide batez, gerrekin gertatzen den bezala, borrokaldien "albo-erakustaldi" batzuk, garrantzi handiegirik gabeko eskualde urrunetan. Iñaki Mendiguren

Bitartean, arabiar itsasontziak goitik beheraino zebiltzan **afrikar** itsasertzean Suezetik Sofalaraino, eta gainera Indonesiaraino ere iritsiak ziren. Iñaki Mendiguren

Mediterraneoak bustitzen duen **afrikar** itsasbazterrean. Iñaki Iñurrieta

Ordurako, nolanahi ere, baliteke Realak **afrikar** jatorriko bi gaztetxo fitxatzea hain arraroa ez izatea. Berria - Kirola

Apirilaren 29 eta 30ean, Hazparneko Elgar Zentroan **Afrikar** dantza ikastaldiak. Herria

Afrikar oihu modernoa. Berria - Kultura

Harro dago **afrikar** odola daramalako. Berria - Kirola

Bere azken lanean Fight to Win-en, **afrikar** batasunaren aldeko aldarria egiten du. Berria - Kultura

Afrikar giroko San Franciscotik buelta pare bat eman ostean. Paddy Rekalde

Horregatik, bisigodoek ez dute gizarte feudal sendo bat -zinezko "jaunekin" lurraldean zehar- eratu; eta horregatik, haize **afrikar** bafada batek airean eraman ditu. Joxe Azurmendi

Langileak falta zirelarik, kolonietako ustiakuntza-sistemak, **afrikar** esklaboen salerosketara jo behar izan zuen gero eta gehiago. Koro Navarro

2 (izenondo gisa)

Eszipion **Afrikarraren** zenturioietako batekin egin behar al nuen topo? Bernardo Atxaga

Arraza zuri ariarraren gehiagotasun naturalaren tesia, eta arraza **afrikar** eta asiarren ezein kultura landutarako ezgaitasun naturala. Joxe Azurmendi

Estuago nahi du ordea azkoina harian, eta anaia txikiaren kargu utzi du beltz **afrikarren** miseria: "haiek goseak hiltzen daude zuk gehiegi duzulako". J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Baina ez zen gripea izan duela hiru aste, Amadou Diallo hogeita bi urteko gazte **afrikarra** hil zuena. Harkaitz Cano

Literaturan, izpiritu espainol - **afrikar** - patologiko honen agerpenik onena mediku batek eskaintzen du: Baroja-k. Joxe Azurmendi

XVIII. mendeko Ilustratuek arima espainol **afrikar** hori zibilizatu egin nahiko dute: izpiritu "frantses" pixka batekin. Joxe Azurmendi

Iaz, bost langile **afrikar** kaleratu zituzten ontziak ez deskargatzeagatik. Berria - Ekonomia

Mahainguru baten ondoren, gurekin batera aritutako idazle **afrikarraz** galdetu nion, ez baitzen jatetxean ageri. Bernardo Atxaga

Iaz, bost langile **afrikar** kaleratu zituzten ontziak ez deskargatzeagatik. Berria - Ekonomia

Izan ere, herri **afrikar** askotako sineskeran, hitzaren sorrera gorpuzten baitu kurriloak. Patziku Perurena

Bederatzi urtetan 150 film **afrikar** eskaini dizkiete bartzelonarrei. Berria - Kultura

Gau **afrikar** hura. Lopez de Arana

Aurelius Augustinus filosofo **afrikarra** da, Kristo o. Imanol Unzurrunzaga

Aladinek bere kontaketa amaitu bezain laster, amak hamaika birao eta hitz ustel jaurti zituen azti **afrikarraren** kontra. Patxi Zubizarreta

3 (izen gisa)

Kendu zientzia, eta europarra **afrikar** edo asiarraren parekoa da. Joxe Azurmendi

Eta **Afrikar** ederrak bekokia inarrosi zuen eta hatz bat altxatu. Gela barruan hiru marinel daude: patroi zaharra, ondarrutarra; pilotua, ondarrutarra hori ere bai eta marinel gazte bat, **afrikar** beltza. Juan Garzia

Hor ziren **afrikar** beltz esklaboen ondorengoak, bortxaz Atlantikoan zehar eramanak. Iñaki Mendiguren

-57 asiar, 21 europar, 14 mendebaldeko eta 8 **afrikar**. Pello Salaburu

Afrikak ez duela egiten historiarik, Afrikan historia agitu bakarrik egiten dela -oholtza bat baino ez da-, ez **afrikarrek** egina, atzerritarrek baizik. Joxe Azurmendi

Horregatik guziagatik diote **afrikarrek**, kurriloa plagiatuz ikasi genuela gizakiok hizketan. Patziku Perurena

Ez dakit zergatik, **afrikarren** sineste horrek, harako Pero Grullo gaztelar hura ekarri dit gogora. Patziku Perurena

Afrikarren telefono lokutorioan bidaiarako gozokiak erosi eta markesinan dagoen jende artean aurkitu du txokoa. zer izan da mende hau Hiesak jotako hainbeste eta hainbeste **afrikarrentzat**? Urtzi Urrutikoeetxea

Agian horrelakoetan, beso gihartsudun etorkin poloniar, italiar eta **afrikar** saldoek oihu egingo zuten norberak bere hizkuntzan, elkar ulertu gabe, dezepzioak eta amorruak jota. Harkaitz Cano

Ekialdeko pistola astun eta zehatzak, **afrikar** mertzenario baten eskutik iritsi amerikar armadaren soberakinetarik 22 rifle mitikoak. Itxaro Borda

Lau **afrikar** klandestino zituen untzi horrek barnean. Herria

4 *afrikar altze* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Afrikar altze ("Taurotragus oryx") Taurotragus generoko animalia da. Artiodaktiloen barruko Bovinae azpifamilia eta Bovidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

5 *afrikar-amerikar* *(corpusean ez dago; ETCn **82** agerraldi)* ik **afroamerikar**.

Ama **afrikar-amerikarra** eta aita indiarra duela esan dit, lañotasunez, berak behintzat **'afrikar-amerikar'** horretan zuzentasun politikoaren zama ez duela erakutsiz. ETC-literatura, saiakera

Bai hildako mutil haren deitura berekoa, esklaboen deitura, milaka edo agian milioika **afrikar-amerikarren** esklabo-deitura arrunta. ETC-literatura, saiakera

Eskuineko populistek sustatzen dutena herriaren (jendartea) eta elitearen zein beste hirugarren talde baten arteko talka da, non, adibidez, etorkinak, islamistak, edo **afrikar-amerikar** ekintzaileak sar daitezkeen. ETC-literatura, saiakera

Haiek diotenaren arabera, "pobre" egiten zaituenak (zuri ala beltz, emakume, armeniar edo **afrikar-amerikar** egiten zaituenak) ez omen luke zure pobretasuna baldintzatu behar (zure klase sozioekonomiko edo politikoa): horrek ba al dauka zentzurik? ETC-literatura, saiakera

Gehienak, gutxiengoren batekoak dira: gazteak, hispanoak edo **afrikar-amerikarrak**. ETC-prentsa

Demokrata izateaz gain, **afrikar amerikarra** ere bazen. ETC-prentsa

Juduena ez da, ordea, McCainen alde lanean ari den koalizio bakarra, badira gehiago ere, besteak beste, asiar-amerikarrena, **afrikar-amerikarrena**, gerra beteranoena, hispanoena eta abar eta abar. ETC-prentsa

Milaka dira, jada, lehen aldiz bozkatzera joan direnak, asko **afrikar-amerikarrak**. ETC-prentsa

Gehienak, gutxiengoren batekoak dira, batez ere, gazteak, hispanoak edo **afrikar-amerikarrak**. ETC-prentsa

Afrikar amerikarren esperientzietatik abiatuta historia alternatiboa proposatzen dute bere lanek, orainaren konplexutasuna agerian utziz. ETC-prentsa

Beste alde batetik, **afrikar amerikarren** bluesak bere errealitate gordinaren kutsua eman dio metalari, galera, depresioa edo bakardadea azpimarratzen baititu. ETC-entziklopedia

1965 - Malcolm X, ministro musulman **afrikar-amerikarra**, beltzen eskubideen aldeko borrokalaria, eraila (j. 1925). ETC-entziklopedia

6 *afrikar bufalo* *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi)*

Afrikar bufaloa ("Syncerus caffer") **Afrikar bufalo** Syncerus generoko animalia da. Artiodaktiloen barruko Bovinae azpifamilia eta Bovidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

Ingelesez, Amerikako bufaloa deitzen dute, nahiz eta adituentzat "bufalo" sailkapena ez dator espeziearekin. Benetako bufaloak Asiar bufaloak eta **Afrikar bufaloak** omen dira. ETC-entziklopedia

Hortxe dago Afrika osoko elefante, jirafa edota errinozero kontzentraziorik handiena. **Afrikar bufalo**, antilope eta zebra ugari ere bada, baita harraparirik ere: lehoiak, leopardoak eta gepardoak. ETC-entziklopedia

Gehien ehizatzen dituzten animaliak, ñuak, bestelako zerbido handiak, zebrak, basurdeak eta **afrikar bufaloak** dira. ETC-entziklopedia

Fauna ugaria da; ugaztun handiak daude (elefanteak, lehoiak, lehoinabarrak, **afrikar bufaloak**, hipopotamoak, errinozero beltzak) eta hegazti dibertsitate altua. ETC-entziklopedia

7 *afrikar diaspora* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Frantzian eta bereziki Paris inguruan bizi den **afrikar diasporakoak** dira "Afrikara" gunea egiten dutenak. ETC-prentsa

NON, AEBetako eta EBeko **afrikar diasporako** artistez osatutako kolektibo bat da. ETC-prentsa

Afrikar diaspora Afrikatik ateratako beltz koloreko pertsonen exodoa adierazteko kontzeptua da. Exodo horren barruan hasierako pertsonen ondorengoak sartzen dira baita ere. ETC-entziklopedia

8 *afrikar elefante* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Afrikar elefantea 1990an gehitu zen Bat Eranskinean. Harrezkero, Afrikako estatu batzuek Bi Eranskinera jaistea lortu dute, salgai batzuen merkaturatzea ahalbidetzen duena. ETC-entziklopedia

Gaur egun **afrikar elefanteen** antzeko ibilerarekin konparatzen da. ETC-entziklopedia

9 *afrikar enara* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Afrikar enara, Hirundo lucida. ETC-entziklopedia

10 *afrikar eper* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Afrikar eper ("Alectoris barbara"). ETC-entziklopedia

11 *afrikar erle* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Afrikar erlea, baita erle hiltzailea ezizenez ere ezaguna, apis mellifera scutellata eta erle arruntaren nahasketatik sortutako erle espezie hibrido bat da. ETC-entziklopedia

12 *afrikar lehoinabar* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Afrikar lehoinabarrak oso animalia indartsuak dira, beraiek baino 3 aldiz gehiago pisatzen duten animaliak hil eta zuhaitz baten gainera igotzeko nahiko indarra izanik. ETC-entziklopedia

13 *afrikar milazka* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Afrikar milazka ("Tamarix africana") "Tamarix" generoko zuhaixka bat da, jatorria mendebaldeko Mediterraneon duena. ETC-entziklopedia

14 *afrikar mokozabal* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Platalea alba - **afrikar mokozabal**. ETC-entziklopedia

15 *afrikar papagai* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Afrikar papagaia "Poicephalus" generoko animalien izen arrunta da. Hegaztien barruko Loro Psittacidae familian sailkatua daude. ETC-entziklopedia

16 *afrikar tripanosomiasi* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Zaldi gogorrak dira bertako ingurunera ondo egokituak. Baita tse-tse euliak zabaldutako **afrikar tripanosomiasi** gaitzaren aurrean ere. ETC-entziklopedia

17 *bufalo afrikar* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Animalia askoz ere handiagoen aurka, Ugaltze-aparatu genitaletan egiten ohi dute eraso, eta frogatuta dago zelan zikiratuak izan diren **bufalo afrikarrak** animalia hauen erasoen ondorioz. ETC-entziklopedia

18 *elefante afrikar* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Elefante afrikar guztiak ez dira espezie berekoak; genetikoki bi talde bereiz daitezke. ETC-prentsa

Izan ere, whiski botilaren barruan **elefante afrikar** bat hiltzeko adina arratoi-pozoi baitzuen xiringa batez sartuta. ETC-literatura, saiakera

Elefante afrikarra da lehorreko espeziea eta zeroia edo kaxalotea itsasokoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

19 *hego(-)afrikar* ik **hegoafrikar**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

afrikar bat (6); **afrikar dantza** (4); **afrikar edo** (3); **afrikar eta** (3); **afrikar herri** (5); **afrikar herri hortan** (3); **afrikar jatorriko** (6); **afrikarra da** (6); **afrikarrak dira** (7); **afrikarrak eta** (5); **afrikarrak ez** (3); **afrikarraren senaz** (3); **afrikarraren senaz fidatuz** (3); **afrikarrek euren** (3); **afrikarren kontra** (4); **arraza afrikar** (3); **azti afrikarra** (6); **azti afrikarraren** (3); **eta afrikar** (8); **gidari afrikarraren** (3); **gidari afrikarraren senaz** (3); **hego afrikar** (4); **hego afrikarrek** (6); **hego afrikarren** (4); **justizia afrikarra** (3); **musika afrikarra** (3); **zen justizia afrikarra** (3)

---

afrikartu, afrikar(tu), afrikartzen *da/du* ad. afrikar bihurtu.

Imajina, beraz, Unamuno-ren "desbideratze afrikanistek" zer grazia egingo zioten: Espainia, ez Europa, baina Afrika dela, edo **afrikartu** egin behar duela, eta antzekoak. Joxe Azurmendi

---

afrikatu 1 *izond* igurzkaria.

Hots **afrikatuak** ahots-bidearen hersketa batekin hasten dira, herskariak bezala. Lourdes Oñederra

Afrikatuak hots trabariak dira. Lourdes Oñederra

Hasperenduak (ph, dh eta abar), **afrikatuak** (--... eta abar), kontsonante bustiak, bokal ahulak (´ edo e mutua eta abar) ez dira azalduko. Isabel Arrigain

Euskaraz, berriz, **afrikatuek** nortasun bereziko sail fonemikoa osatzen dute. Lourdes Oñederra

Euskarazko tz ts, ts tS eta tx t **afrikatuetan**, igurtzi hori TXISTUKARIA izan ohi da. Lourdes Oñederra

Afrikatuetako hersketa poliki irekitzen da, denbora batez ebakera- organoak elkarrengandik nahiko hurbil daudelarik, tartetik igarotzen den aireak igurtzi zarata atera dezan. Lourdes Oñederra

Esan behar da, gainera, euskaraz maiztasun handikoak direla igurzkari / **afrikatu** txandakatzeak. Lourdes Oñederra

2 *kontsonante afrikatu* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Euskarak dituen sei fonema txistukariak bitan bereiz daitezke artikulazio-moduari dagokionean: hiru kontsonante frikari eta beste hiru **kontsonante afrikatu**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Abiada **kontsonante afrikatu** bat edo erdibokal batez jarraitutako kontsonante bat izan daiteke, baina hauek ez dira talde kontsonantikotzat jotzen, jeneralean. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ts afrikatua (3)

---

afrikatze *iz* igurzkari bihurtzea.

Euskaraz maiztasun handikoa den beste **afrikatze** bat txistukari igurzkari biren elkartzean sortzen da (adib., *ez zen etorri, ssŠts: etsen etorri*). Lourdes Oñederra

Afrikatze honen gertagarritasuna, beste ordezkatze askorena bezala, aldakorra da (ikus emankortasuna atalaren "Baldintza prosodikoak" azpiatala). Lourdes Oñederra

Diakronikoki ere ikus daiteke **afrikatze** BILAKABIDE interesgarri bat. Lourdes Oñederra

Ez dago erabat lekuz kanpo hemen, **afrikatze** bidezko indartze horren parean, labur gogoraraztea euskararen silaba hasierak indartzeko joerak sortu ondra, Endrike bezalako egokitzapenak. Lourdes Oñederra

Esaterako, **AFRIKATZE** TXANDAKATZEA duten euskaretan (*etorrisen* vs. *joantsen*) ez da hiztegian /ns/ bilkurarik aurkitzen. Lourdes Oñederra

---

afro (aurrizki gisa) afrikarra. ik **afroasiar**; **afrobeat**; **afroingeles**; **afrokaribetar**.

1 *afro-amerikar* ik **afroamerikar**.

Bizar labana, iz. Kaukasiarrek beren edertasuna handitzeko, mongoliarrek beren burua txorimalo bihurtzeko eta **afro-amerikarrek** beren balioa indartzeko erabiltzen duten tresna. Xabier Olarra

Hala, jazz emanaldiak, musika **afro-amerikarrekoak** eta Japoniako musika tradizionalaren emanaldiak eskainiko dituzte. Berria - Kultura

Afro-amerikarrek ostera, lurrerantz, sustraietarantz begira dantza egiten ditek... Harkaitz Cano

NAISON x fordham unibertsitateko institutu **afro-amerikarreko** irakaslea. Berria - Harian

2 *afro-kubanismo* *iz*

Afro-kubanismoaren eremuan, olerkariak eta musikariak ere ibili ziren, margolariez gainera. Berria - Kultura

Politikotzat jotako pinturak «behealdia» izan zuen, nekazaritzako gaiek bidea eman zieten «bestelako dimentsioei», eta **afro-kubanismoa** oinarri zuen pintura bertan behera geratu zen, Wifredo Lam eta Roberto Diago Habanako Eskolaren eremura agertzearekin. Berria - Kultura

3 *afro-kubatar* *(corpusean **afro-kubar** soilik) izond* ik **afrokubatar**.

Bere ibilbideko hemeretzigarren diskoan, funketik, Jamaikako rock-steadytik, bluesetik, musika **afro-kubarretik** eta hip-hopetik edaten duten hamabost abesti bildu ditu Waitsek. Berria - Kultura

---

afroamerikar *izond/iz* afrikar jatorriko amerikarra.

Fatima Mernissi, eta Toni Morrison eta emakume **afroamerikarren** literatura izango dituzte hizketagai Josune Muñozek eta Esti Ezkerrak literatura eskolak gaur Larrabetzun antolatutako hitzaldian. Berria - Kultura

AEBetako zentro ebanjeliko batetik sortuak ematen dute gazte **afroamerikar** horiek, eta grazia gutxiko baina fede oneko aholku moralez beteriko saioa aurpegiratu ziguten; alde egiteko ordua zen seinale. Berria - Kultura

Autesle **afroamerikarrak** bozkalekuetara kopuru handietan joatea espero da berriro ere. Berria - Mundua

Tradizionalki, azken hamarkadetan, behintzat, **afroamerikarrak** Alderdi Demokratari lotuak egon dira. Berria - Mundua

Lan honekin eman zion bultzada *Black New Wave* deitutakoari ere, **afroamerikarren** gaiak **afroamerikarren** ikuspegitik jorratzen dituen zinema. Lautik hiru ez ziren ez Wayne, ez Mitchum, ez Martin, manumitugabeko **afroamerikarrak** baizik. Berria - Kultura

Elizgizona eta predikaria izateak erraztuko zion, akaso, enpresaren munduan sartzea, eta **afroamerikarren** esku zegoen negozio bakanetariko batean sartu zen: ehorztetxeen negozioan. Berria - Kultura

Ameriketako Estatu Batuetan 1999an giza garapenaren indizea zurientzako 0,870ekoa izan zen eta beltzentzat, edo -izan gaitezen *political correct*- **afroamerikarrentzat**,

berriz, 0,805ekoa zen (eta hispanoena, 0,756). Iñaki Heras

Jendea dantzan ari izango da, mugimendu zoro eta desartikulatuekin, onek, alakalufeek edo yamanek suaren inguruan egingo luketen eran, edo New Yorkeko **afroamerikar** gazte haluzinatuek player merke baina ozenaren alboan bezala. Joseba Sarrionandia

---

afroasiar *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)* **1** *izond/iz* aldi berean Afrikan eta Asian izaten dena.

Alabaina, elkartutakoren bat kontinenteren baten izena bada, marratxo barik idatziko da, esaterako indoeuropar, **afroasiar** eta austronesiar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala ere, nazioartean Hirugarren Munduaren formalizazioa, errealitate operatibo gisa, izena agertu ondoren osatu zen, Bandungd-en (Java uharte indonesiarreko hirian) 1955ean ospatu zen Konferentzia **Afroasiarrean**, hain zuzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Afroasiar eremuaren sozioekonomiaz arduratu zen, jarrera moderatuaz beti. ETC-entziklopedia

Biztanle gehienak (% 90) arabiar jatorrikoak dira, eta **afroasiarrak** dira gainerakoak. ETC-entziklopedia

2 *hizkuntza afroasiar* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Taulan **hizkuntza afroasiarren** ezaugarri tipiko bat ikusi dezakegu: "t-" / "-t" hizkiak femeninoaren marka dira. ETC-entziklopedia

---

afrobeat *(corpusean ez dago; ETCn **70** agerraldi, horietatik **39** azken sei urteetan)* *iz* 70eko hamarkadan Nigerian sortutako musika estiloa, joruba musika, jazza eta funka nahasten dituena.

Russellen doinu dantzagarrienetan **afrobeat**-aren taupada dago, eta erritmo kutsagarri hori Fela Kuti handiari zor diogu. ETC-literatura, saiakera

New Yorken bizi den Ghanako kantari honen bosgarren lan luzeak hip hopa du ardatz nagusi, baina inoiz baino bustiagoa highlife eta **afrobeat** musiketan. ETC-prentsa

Seun, Fela Kuti **afrobeat**-aren aitzindariaren semea da, eta aitarengandik jaso zuen herentzia musikala eskainiko du Heletako eszenatokian. ETC-prentsa

Frikun taldearen **afrobeat** erritmoekin dantza egiteko aukera egongo da gaur gauean Ziburun (Lapurdi). ETC-prentsa

Afrobeat etiketapean aritzen da Jungle By Night taldea. ETC-prentsa

Afrobeat erritmoak eta doinuak jotzen ditu Makulu Ken taldeak, grina, gogo eta bizitasun handiarekin. ETC-prentsa

Mursegoren kontzertu didaktikoa gaztetxean, Siriako talde batek prestatutako afaria, eta **afrobeat** kontzertua. ETC-prentsa

Pentsaurreko batean adierazi zuen musika berri bat asmatu zuela: **afrobeat** izena eman zion. ETC-entziklopedia

Makulu Ken 2007an Lasarte-Orian sortutako **afrobeat** musika taldea da, taldekideek "euskalafrobeat" deitzen dutena. ETC-entziklopedia

Pop eta disco musika lantzen dute, baina **afrobeat** eta funk bezalako estiloak ere kontuan hartzen dituzte euren konposizioetan. ETC-entziklopedia

---

afrodisiako **1** *izond* sexu desira areagotzen duena.

Bertze atso bat, belar **afrodisiakoak** saltzen. Joan Mari Irigoien

Gertatu zen, "giroan sar zitezen", edabe **afrodisiako** bat eman ziela bere "partida" haietako batean parte hartu zuten bost prostitutari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baita hain preziaturik zeukaten elixir **afrodisiakoa** ere. Pello Zabala

Jaki **afrodisiakoen** anuntzioak irakurtzen gelditu naiz koloretako kioskoen aurrean. Joseba Sarrionandia

Masaje saioren bat izango zen dendaren atzealdean, urre koloreko sofaz, sexu ahala indartzeko luxuzko tresnaz eta intsentsu **afrodisiakoaren** hedagailuz hornituriko areto ederrean. Joxan Elosegi

Ba al dakizue txokolatea **afrodisiakoa** dela? Xabier Mendiguren Elizegi

2 *iz* sexu desira areagotzen duen gaia.

Aldi berean elikagaia eta **afrodisiakoa**, lankide hurbilenetako batek prestatzen zion. Patxi Zubizarreta

Ehiztariek, adarbakoitzaren barruan **afrodisiakorik** gorenena gordetzen dela jakinik, neskatxa birjina bat hartu, eta adarbakoitzaren bidean jartzen dute. Anjel Lertxundi

Animaliak hiltzea bezain **afrodisiako** onik ez dagoela esaten du Norminhak, eta hotzikara ikaragarri batek astintzen duela, animalia hiltzen den momentuan. Karlos Zabala

Buruaren lasaigarria eta bizitzaren aringarria izateaz gain, **afrodisiako** ezin hobea duk. Patxi Zubizarreta

Afrodisiako horiek ez dute dagoeneko eraginik nire oroimenean. Monika Etxebarria

Teoriaren defendatzaileek ez dute **afrodisiako** behar handirik halere, nahiko bero baitaude lehendik ere. Xabier Mendiguren Elizegi

---

afrodisiar *izond* Afrodisiakoa.

Alexandro **Afrodisiarraren** ustez, gauza batzuei buruzko desakordioak hiru dira: lehena, nabarmentzeko eta agertzeko nahikeria, gizakiari egia bere osotasunean eta den bezala hautematen eragozten diona; bigarrena. Xabier Kintana

---

afroingeles *izond/iz* afrikar jatorriko ingelesa.

Hori **afroingelesa** dun, nigeriarra beharbada. Lutxo Egia

Afroingelesok kasko gainean eramaten diagu gau eta egun. Lutxo Egia

---

afrokaribetar *(corpusean **karibear** soilik)* *izond/iz* afrikar jatorriko karibetarra.

Aireportuan bezain galdurik sumatzen zuen bere burua **afrokaribearren** auzune hartan. Lutxo Egia

---

afrokubatar *izond/iz* afrikar jatorriko kubatarra.

Haren aurretik, musika **afrokubatarraren** ikur batek hartuko du agertokia: Cachaok. Berria - Kultura

---

afrontu[1] *iz* egurats gorria, euri eta haize erauntsia.

Eta hortik jota eztabaidak errazago hartzen du **afrontu** pertsonalaren itxura. Iñaki Iñurrieta

Aurrerantzean, **afrontuan** egin beharko genituen gure behar geureenak, hau da, barru libratzeak, bestela halako ontzietan denen aurrean eta edozein zokondotan, hala ganbaretan zelan kanoien gerizpetan egin izaten zirenak. Edorta Jimenez

Afrontuan lo egiteari gustua hartu nion, egia esan, baldin eta lozakura barerik igotzen ez bazitzaidan bederen, ez baititut batere maite barraskiloen lehengusu horiek. Aitor Arana

Eguzkia ezkutatua zen mendien gibelean eta nik berriro egin beharko nuen lo **afrontuan**. Aitor Arana

Barlobentoa haizearen aldea zen, **afrontuko** banda. Joseba Sarrionandia

---

afrontu[2] ik **afruntu**.

---

afruntatu, afrunta(tu), afruntatzen du *ad ipar* laidotu.

Afruntatu ditu erabaki horrek Ipar Amerikanoak, bereziki gobernu gizon eta hautetsiak. Herria

Elkarrekin gertatu ginen batez, gutienik ustean behin betikoz **afruntatu** ninduen, bere mintzatzeko manera bitzi apostolutsuarekin haren galdera ez bainuen konprenitu eta asto batentzat pasarazi baininduen. Daniel Landart

Kidea, lana baduelako aitzakiaz, urruntzen zait, **afruntatua**. Itxaro Borda

Ama ahuntz-jauzika ondoratu zitzaion, **afruntatua**: [...]. Itxaro Borda

-Nitaz **afruntatua** xira? Itxaro Borda

---

afruntu *(orobat **afrontu**) iz ipar* laidoa.

Printzeak beso luzea du eta ez du nolanahi ahaztuko zure **afrontua**. Matías Múgica

Eta hortik jota eztabaidak errazago hartzen du **afrontu** pertsonalaren itxura. Iñaki Iñurrieta

---

afrus *izond adkor* lazgarria, erabat itsusia.

Emakume pakistandarra, motxila **afrusa** sabel gainean jiratuta dakarren turista batekin gurutzatu da. Harkaitz Cano

Alabainan, heldu ala gazte, nexka ala mutil, lotu dira ihauteriaren prestatzerat, Zan Pantzar **afrus** horren untsa zanpatzeko eta menturaz gehiago ere. Herria

'Tiserta' errebendikatiboak udan ala beren amatxik eskaini trikota **afrusa** neguan! Ramuntxo Etxeberri

Nazkagarri honek, zuen zapaten zola garbitzeko ere duin ez den zomorroide, perguta, **afrusa**, hankabiko arrunt honek erabaki du. Jon Alonso

Bazter batean bizitzeak badu alde ederrik: autoan orduak eta orduak eman arren, Borda ez du inoiz oztopatzen gure garaiko ikurrik nabarienak, auto ilara **afrusak** alegia. Markos Zapiain

Ravensbruck **afrusa** izan bazen, Mauthausen oraino gehiago. Jokin Urain

"Afrusa duk! -esan zidan- zeharo **afrusa"**. Hasier Etxeberria

---

afruskeria *iz adkor* ekintza afrus gaitzesgarria.

Gaur egun entzuten ditugun **afruskeri** guzi horiekin! Ramuntxo Etxeberri

Afruskeria ez zen hartan bururatu. Eneko Bidegain

Eztabaidatu zuten, berotzen joan ziren, eta azkenerako Maruk eztabaida bukatu zuen ukabila itxi eta kolpe lehor eta indartsu bat emanez sukaldeko mahaiaren gainean, hain lehor eta indartsu non apalategian denboren hasieratik egondako zeramikazko katua Julianen amaren oparia, **afruskeria** hutsa dantzan hasi, erori eta mila puskatan zartatu zen arte. Berria - Kultura

---

aftoso

1 ***sukar aftoso*** eritasun kutsakorra, zerriak eta hausnarkariak jotzen dituena, ahoan eta apatxetan sortzen zaizkien baba edo puslak ezaugarri dituena.

Behi eroak, **sukar aftosoa**, SARSa eta orain hau. Berria - Gaiak

Orain urte batzuk, Erresuma Batuan, txerri guztiak hil zituzten **sukar aftosoa** zabaltzea eragozteko. Berria - Gaiak

Sukar aftosoak ez zien gizakiei erasaten, baina abelburu guztiak hil zituzten, bizirik utzita ere inork ez zituelako erosiko. Berria - Gaiak

Ez dira garai samurrak abelazkuntzarako: behi eroen auzia, pentsu kutsatuak, **sukar aftosoa**... Patxi Iturritegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **sukar aftosoa** (3)

---

afusilatu *(orobat **afusilau**)* ik **fusilatu**.

---

agabe *iz* pita *(Agave americana).*

Xake-jokoan jarraitzeko moduan geunden, zerumugako **agabe** beltzen artean dagoeneko ilargia agertua zen arren (filmatu ere bai nik) zeharo argi baitzegoen, baina hoztu ere egin zuen derrepente eta utzi egin genuen. Joxe Austin Arrieta

---

agaka *iz* Sabino Aranak eratu zuen alfabetoaren izena.

Hogei letra, beraz, orduko **agaka** osatzen zutenak: a, g, k, y, x, e, d, t, o, l, n, ñ, u, r, s, z, i, b, p eta m. Iñaki Arranz

---

agalaxia *iz* erditze ondoan gertatzen den esne gabezia ezohikoa.

Baso bat etxeko ardo eta aspirina batez artatzen garenean, ardiak **agalaxia**, ikara, scrapiea, harrak buruan edo errapeetako mina dutenean, bospasei txerto ezti, bitaminak eta pomadak erdiesten dituzte, bat ere potretik eta marrakarik gabe. Itxaro Borda

---

agape *iz*

Kristauek ezagutzen dute: **agapea** da, grekoz *ahâba,* Jainkoaren maitasuna, Kristoren maitasuna, bera maitasuna baino ez denez. Felipe Juaristi

agar **1** *iz* substantzia likatsua, alga gorrietatik edota zenbait landaretatik ateratzen dena.

Artean oso gutxi erabilia esperimentu-gaitzat, zera zen haren bertute nagusia: aise eta bizkor ugaltzen zela, kolibaziloz ereindako **agar** -ontzietan. Juan Garzia

Pertsianak egiteko erabiltzen duten ramin zuhaitz tropikala bigarren mailara jaso dute, baita **agar** olioa sortzen duten zuhaitzen egurra ere. Berria - Gaiak

2 ***zetrimida agar*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hautakorrak: bakterio batzuen hazkuntza inhibitu eta besteena errazten dute. Esaterako, '**zetrimida agarra**', Pseudomonas izan ezik gainontzeko bakterioen hazkuntza inhibitzen duena. ETC-entziklopedia

---

agaramondar ik **agaramontar**.

---

agaramontar *(ETCn **114** agerraldi; orobat **agramondar** **2** agerraldi) izond/iz* Nafarroan XV. mendean Agramonteko jauna buruzagi zuen fakziokoa.

Zeruarekin lotura zuten gauzetan bat etorri arren, lurrekoek tirabirak eragin zituzten Xabierkoaren eta Loiolakoaren artean, lehenengoa **agaramontar** sutsua eta bestea oinaztarra zelako, beaumontarrekin batera Gaztelaren aliatu biziak. Berria - Euskal Herria

Frantziskoren familia **agaramontarra** izanik, Nafarroako errege-erreginen alde borrokatu ziren, Gaztelaren eta haren zerbitzura ziren beaumontarren kontra. Berria - Euskal Herria

Agaramontarren burua konkistaren garaian. Aingeru Epaltza

Oroit nola jo zuen aitatxik **Agaramontarren** kimu gaztearengana, erreginaren senar Antonio Borboikoak nire ama Katalina haurdun utzi ondoan gorteak bizkarra eman ziolarik. Aingeru Epaltza

Agaramontarrei eskerturik egoteko arrazoiak ez zitzaizkion, beraz, falta Migel Mailuri. Aingeru Epaltza

---

agarrado *(orobat **agarratu** eta **agarrau**) iz adkor* dantza lotua.

Batek sueltoa joko zuen, eta beste hirurek **agarradoa**, helduta dantza egiteko musika, herri batzuetan, urte askotan, apaizek heldutako dantza debekatuta eduki zuten arren. Pako Aristi

Hobe izango nuela soinua atzera saltzea, bestela, hala segitzen banuen, infernua seguru neukala... eta guztia han edo hemen **agarradoa** jo izango nuelako. Pako Aristi

Dada askoz ere okerrago haiek, **agarradoan**, dultzemeneoan ere esaten zitzaioan, ari ziren bikoteei makilarekin atzetik bizkarrean krax-krax jo eta apartatzeko agintzen. Pako Aristi

Lajak asko jo izan ditu, **agarradokoak**, Martinek ere bai, Epeldek. Pako Aristi

---

agarratu ik **agarrado**.

---

agarrau ik **agarrado**.

---

agartar *iz* Ismaelen ama Agarren ondorengoa, arabiar jatorrikoa.

Saulen garaian, **agartarrak** borrokatu eta menperatu egin zituzten; gero, haien bizitokietan gelditu ziren, Galaadeko ekialde osoan. Elizen arteko biblia

---

agata *iz* kuartzoaren aldaera, gogorra eta zeharrargia, hainbat koloretako geruzak osatua.

Zeuk ikusi porpidarria, jaspea, **agata**, lapis lazulia, marmolik finena edo zein material erabiltzen duzun. Patxi Zubizarreta

Hirugarrenean, opaloa, **agata** eta amatista. Elizen arteko biblia

Zigarroa **agata** beltzezko hautsontzi lodian zapaldu nuen. Matías Múgica

---

agenda *(ETCn **114** agerraldi; orobat **ajenda** **4** agerraldi)* **1** *iz* gogoratu behar diren kontuak biltzeko erabiltzen den liburuxka modukoa.

Hilabete haietan idatzi nituen **agenda** eta egunkari intimoa baliatuko ditut beharrezko erreferentziak eta frogak eskuratzeko eta gertaerak zehazteko. Joseba Urteaga

Ajenda batzuk irakurri zizkidaan, Londresen egiten zitian lanei buruzkoak. Koro Navarro

Unibertsitateko egoitzara itzuli nintzenean idatzi nuen **agendan**: "L.B.ren zain beste behin, euripean. Joseba Urteaga

Agendan: "Mutil erromantiko batekin dantzatu naiz, baina ezin izan dut ezer egin". Joseba Urteaga

Gobernamendu globala, beraz, liberala da, eta gehiengoaren ongizatearen eta ingurumenaren kontura mantentzen diren balio neoliberalek ezarritako **agendari** ematen diote egiturazko lehentasuna. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Mn 1065, nire garai hartako **agendaren** babes-orrian idatzita daude. Joseba Urteaga

EZER EZ idazten hasi nintzen nire **agendan** gauero, letra larriz eta azpimarraturik. Joseba Urteaga

Ajendan markatzen zenuen lehenengo eguna. Lourdes Oñederra

Emaztea hitzaren lasaitasuna kristaleko lurrunean galtzen zaio Andrési, lanerako eman dioten telefonoa **ajendan** apuntatu zuela uste duela pentsatzen hasten delarik. Lourdes Oñederra

Andereñoak eskuko poltsatik arkatza atera eta bere **agendako** orri bat moztu zuen. Anton Garikano

Ordenagailu eramangarria itzali aurretik, ohi bezala, hurrengo eguneko **agenda** aztertu zuen. Fernando Morillo

-Ez zeraman beste ezer gainean, ez koaderno ez inolako **agendarik**. Fernando Morillo

Gainean, urteko **agenda**, idazmakina, eta bolalumak eta errotuladoreak sartzeko potetxoak, bakoitza beretako zokoan. Aingeru Epaltza

Garapen iraunkor esaera gobernarien **agenda** politikoetan eta nazioarteko erakunde guztietan finkatu zela esan genezake. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Horrelakoen **agendetan**, ordea, ez zen Anjel Urtxipiaren ehorzketarako lekurik izan. Aingeru Epaltza

2 ***agenda elektroniko***

Sakelako **agenda elektroniko** bat (PDA) izango da gidariaren eta ibilgailuaren arteko komunikazio tresna. Berria - Gaiak

Karkara gordina askatzen zuen noiztenka, etxekoei maleta hanpatu batetik ilkitzen zituen opariak banatzen zituela: Maianari ile-lehortzeko makina, Sebasi palm **agenda elektronikoa**, Kastelari usain on karioa... Itxaro Borda

Horretarako, sentsore horiez gain, sakelako telefonoa edo **agenda elektronikoren** bat behar da. Berria - Euskal Herria

Eskuko **agenda elektronikoa** atera zuen motxilatik. Fernando Morillo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agenda arazoak (4); **agenda bat** (11); **agenda baten** (3); **agenda berria** (3); **agenda bete** (4); **agenda elektronikoa** (3); **agenda irekia** (3); **agenda politiko** (6); **agenda politikoa** (14); **agenda politikoan** (12); **agenda politikoari** (3); **agenda txiki** (3); **agenda zint s** (12); **autes agenda zint** (12); **bere agenda** (6); **da agenda** (3); **dute agenda** (3); **ekitaldien agenda** (3); **gure agenda** (3); **lan agenda** (3); **lisboako agenda** (3); **metodologia eta agenda** (3); **tokiko agenda** (10); **zuen agenda** (4)

agendako gai (3); **bere agendako** (3)

agendan begiratu (4); **agendan ez** (3); **agendan idatzi** (3); **bere agendan** (5); **nire agendan** (5); **zuen agendan** (3)

agendaren arabera (3)

ez agendarik (3)

alderdi politikoen agendetan (3)

---

agendatxo *iz* agenda txikia.

Bere **agendatxoa** atera zuen, gelditzen zitzaizkion opor-egunak zenbatzearren. Joxe Austin Arrieta

Inportantea neritzona aitak emandako Gascue y Cruz etxe kontsignatzailearen **agendatxo** batean apuntatzen. Koldo Izagirre

---

agente *(ETCn **10.061** agerraldi; orobat **ajente 7** agerraldi)* **1** *iz* erakunde, organizazio edo agentzia bateko kidea; beste baten izenean zerbait kudeatzen duen pertsona; adierazten denaren eragilea.

Bertako etxebizitza-agentzia bateko **agente** batek sei edo zazpi apartamentu erakutsi zizkidan harri gorriztako etxeetan. Oskar Arana

Egun haietan, egiaz, gure **agente** guztietako trebeena izan nintzen. Matías Múgica

Albistearen arabera, 800 **ajente** izango zituen Polizia autonomikoak, arma laburrak baino ezingo zituzten eraman eta "errepide probintzial eta komarkalak" baino ez zituzten zainduko "nazionalak" Guardia Zibilaren zaintzapean izango ziren. Berria - Euskal Herria

Paperak **agente** bati eman eta alde egin zuen. Karlos Zabala

Aurreko eserlekuetan SDko bi **agente** zeuden, Müller bera eta Rudolf izeneko tipo flakosta bat, gidari zebilena. Alberto Ladron Arana

Del Vallek dei bat egin zuen Baionara, SIPMko **agente** baten zenbakira. Alberto Ladron Arana

Hegazkinean bertan CIAko **agente** Frank hori zihoan. Edorta Jimenez

KGBko **agentea** izan den gizon honek -komunista izaten segitzen duela dioen bakarra- mundua ezagutzen du. Edorta Jimenez

Zerbitzu sekretuen **agentea** naiz, ala zoro bat? Koldo Izagirre

Zerbitzu sekretuetako **agente** bat hil eta bere buruaz beste egin du. Berria - Mundua

Defentsa Departamentuko galdeketa egileek FBIko **agente** zirela esan zuten. Berria - Harian

FBIren buru nagusi Edgar Hooverrek **agente** Laddy txostengileari egindako orrialde bakar bateko erantzunean argi dio; "Ernestek ez du FBI gogoko". Edorta Jimenez

Higiezinen **agente** batek ahots kantariz argudiatu zuen: [...]. Lopez de Arana

Agian **agente** honek aterako du zerbait zuk eskuratutako ordenagailu horietatik. Fernando Morillo

Agente horren curriculuma irakurri dut: Michael Ramírez da, guraso kubatarrak, militarra, hainbat ekintza egindakoa munduan zehar. Fernando Morillo

Diktadoreak Gustavo Duran sobietarren **agentea** eta homosexuala dela haizatzeko agindua ematen du. Edorta Jimenez

Euskadiren eragin gaiztoa bazter orotara zabaldu nahi duten euskal nazionalismoaren **agente** maltzurrak. Joan Mari Irigoien

Fiskalaren arabera, Espainiako Poliziako bi **agente** iraindu zituen Sadarren, duela bi urte. Berria - Kirola

Zerbitzu sekretuetako **agente** baten izena ematea. Berria - Gaiak

Eliza parean polizia bat zagok; atsoa hurbildu eta esaten ziok: **"Agente**, bukatu al da meza?". Xabier Paya

Berak hartu zuen tiroka polizia eta isileko **agente** bat zauritu zuen buruan. Jose Morales

Aleman Inperioaren bi **agente** aurkitu, harrapatu, agian hil. Juan Garzia

Gure hiriko kronopolizia izan zen, hain zuzen ere, kasuaren ebazpena lortu zuena; **agente** berrien lehenengo ekintzetako bat izan zen. Iban Zaldua

Agente batek altoa eman dio kamionetari bide erdira aterata. Patxi Iturritegi

Nekazaritzako substantzia kimikoek eta **agente** kutsatzaileek eraso diote gizakiaren digestio-hodiari, eta gorputzak ez du haien aurkako babes-mekanismo naturalik. Irene Aldasoro

Alauiri "gaizkiaren ikur eta sinesgabetasunaren **agente**" izatea leporatzen dio ahotsak. Berria - Mundua

Mirandak burtsaren inguruko guztiak zekizkien, bere aita kanbio eta burtsako **agentea** zelako. Fernando Rey

2 (izenondo edo izenlagunekin)

Kim Philby, britainiarren zerbitzu sekretuetan infiltratu zen **agente** sobietarra Gernikan izan zen. Edorta Jimenez

Black nekatuta zegoen **agente** bikoitza izateaz, **Agente** katoliko bat eskatu zuten, fede handiko gizon bat eta, erran dizudan bezala, alemanez jakin eta aleman itxurakoa izan behar zuena. Iñaki Mendiguren

Hegaldietan **agente** armatuak eramateak arriskua areagotuko lukeela esan zuen atzo Portugalgo Abiazio Zibileko Institutuko zuzendari Joaquim Carvalhok: [...]. Berria - Mundua

Beharbada, saretik kanpo dabilen idazleak **agente** propio bat behar luke. Ana Urkiza

Abokatuak, artistak eta **agente** komertzialak. Anton Garikano

Agente ekonomiko eta sozialen arteko lankidetza eta ekoizpen-bideen gaineko langileen jabetza sustatzen duen doktrinan oinarrituriko enpresak dira kooperatibak. Iñaki Heras

Hans, adibidez, harekin lanean ari ziren **agente** alemanen burua, benetako nazionalsozialista zen. Alberto Ladron Arana

Dozena erdi **agente** alemanekin batera, lau aste emanak zituen Baionako Gochoki egoitzaren inguruak zelatatzen. Alberto Ladron Arana

Aitaren etxeko egongelan **agente** nazi baten gorpua zetzan odol putzu batean. Alberto Ladron Arana

Ni Laborde herritarra naiz, Konbentzioak izendatu **agente** nazionala, eta galdera bat egin dizut. Elena Touyarou

Yi jaunak azaldu zidan Xong zuela abizena, eta merkataritzako **agentea** zela; herrialde osoan ibiltzen zen, bere erosgaiak salduz. Juan Kruz Igerabide

Zure ikerketen arabera atzerriko **agente** arriskutsu bat sartu da Reichean. Alberto Ladron Arana

Azken hilabete haietan elkarlanean aritu behar izan zuen alemaniar **agente** anitzekin, SD informazio zerbitzu nazikoak gehienak. Alberto Ladron Arana

Pistolari hura espainiar **agentea** izatea posible bazen ere, horrek ez zuen erran nahi nahitaez nire atzetik ari zenik. Alberto Ladron Arana

Oreka hori lortzeko ezinbestekoa izango da botere publikoaren esku-hartzea (edo **agente** pribatuen eskuzabaltasuna). Iñaki Heras

Atean eman zuten kolpe bortitz batek esnatu zuen, eta Honorinek jaun guztiz serio bat sartu zuen, eta haren atzetik segurtasuneko bi **agente**. Josu Zabaleta

Bagenekien KAOSeko **agente** garrantzizko horrek itsuki maite zuela piku-mermelada, batetik, eta bagenekien bere listuaren ADNko nukleotidoen sekuentzia zifratua. Jon Alonso

Hegaztien gripearen birusa **"agente** patogeno eraginkorragoa eta kutsakorragoa" bihurtzeko arriskuaz ohartarazi dute beste behin hiru erakundeok. Berria - Gaiak

Horrek poliziklo hidrokarburo aromatikoak (PH) sortzen ditu, eta horiek "oso **agente** kutsatzaile arriskutsuak dira". Berria - Euskal Herria

Egun minbizia tratatzeko erabiltzen den **agente** eraginkorra Taxola deiturikoa da. Berria - Gaiak

Unibertsoan, ezinbestean, bi gauza daude: **agente** sortzailea eta sortutako izakia. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Agente literario lana uztea erabaki duzu, horretan sei urte eman ondoren eta euskal idazle ezagunenen **agente** izan ondoren. Berria - Kultura

High Streeteko tabako dendaren gainean zegoen kafetegia, eta goizero-goizero elkartzen ziren han berriketan jardutera bulegari gazteak, dendari laguntzaileak, beren aiten bulegoetan lan egiten zuten gazteak edo burtsako **ajenteen** ikasleak eta abokatuak. Koro Navarro

James Bond berberak ezin izan dio sorginen ehiza honi ihes egin: bere hurrengo filmean, lehen aldiz, Ian Flemingek sorturiko 007 **ajenteak** ez du zigarro bat bera ere erreko. Harkaitz Cano

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sei urtez, euskal idazle eta ilustratzailerik ezagunenentzat egin du **agente** lana: [...]. Berria - Kultura

Gestapoko **agente** andana ez baina aita sartu zen. Alberto Ladron Arana

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1856tik goiti, Emigrazio **agente** horrek ehundaka amikuztar lagundu zituen Argentinara joaten. Herria

Cornwallisek eta haren ondorengoek Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainiako merkataritza-**agente** harraparietatik atera zituzten. Iñaki Mendiguren

Stephenen argitalpen-**agente** izan zen Margaret. Xabier Olarra

Aseguru **agentea** edo dena delako bat. Iñaki Iñurrieta

Hirigintza-**agentea** : Lege proiektuak saihestu egin nahi du jabeak lurzoruari atxikitzea espekulatzeko asmoz. Berria - Euskal Herria

Aseguru **agentea** : Baina zure etxea aseguratu gabe erretzen bada, erabateko galera izango da. Xabier Olarra

Bizitza-aseguruak saltzea ez da langintza pasiorik gabea, eta aseguru-**agente** onak gauza izan behar du bere burua defendatzeko bezeroekin eztabaida zail bihurriak sortzen direnean, sarri gertatu ohi denez. Oskar Arana

Informazio hori polizia **agente** batzuk eman ziotela gaineratu du. Berria - Mundua

Mikroekonomiak ekonomia **agente** bakoitzaren jokabidea eta agente horiek parte hartzen duten merkatuen funtzionamendua aztertzen du. Iñaki Heras

5 ***aduana agente*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Misioa osatzen dutenean, EBko 1.900 polizia, epaile, **aduana agente** eta administrari arituko dira lanean Kosovon, bertako 1.110 jarduleez gain. ETC-prentsa

Izan ere, konpainien monopolioa hautsita, erregeak **aduana-agenteen** bidez kontrolatu nahi zituen baimendutako portuen merkataritza-mugimenduak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Calypso hustera zihoazela jakin zuenean, **aduana-agenteak** amari erregutu zion pianoa ez zezatela enkantean sartu, berak erosi nahi baitzuen. ETC-literatura, saiakera

Poemak errezitatzen zituen pianojolea, emakumezkoa, Turismo Bulegorako esloganak idazten zituen jostuna, gizonezkoa, Sevillako Udalaren Nobela Sarian finalista izandako **aduana agente** bat, ez gizonezkoa ez emakumezkoa... ETC-literatura, saiakera

Guraso abertzale eta euskaltzaleengandik musika, dantza eta, oro har, euskal kultura jaso zuen. Aita, Pontxio, **aduana agentea** , Gurutze Santuaren Plazako Gure Borda etxekoa. ETC-entziklopedia

6 ***agente bikoitz***

Black nekatuta zegoen **agente bikoitza** izateaz, prest zegoen Zuk Dakizunaren alde agerian agertzeko, eta badirudi Pottertarrak hiltzen ziren unean zuela hori egiteko asmoa. Iñaki Mendiguren

Neure buruari galdetu nion ea ez ote geunden kolaborazionista baten eskuetan, ea gizon hura ez ote zen **agente bikoitza** izango. Juan Kruz Igerabide

7 ***agente ekonomiko***

Bestetik, **agente ekonomikoei** ere seinale bat igortzen die, inflazioa handitzea ez duela onartuko adieraziz eta, beraz, euroa eros ahalmena babesteko txanpon egonkorra dela agertuz. Berria - Harian

Arazoa zera da, egungo agintariek **agente ekonomikoei** asko entzuten dietela, eta gutxi beraien herritarrei; eta horrela, jabetza intelektuala objektu fisikoen modura ustiatzen duten enpresen hitzek itsutu egin dituzte. Berria - Gaiak

Agente ekonomiko eta sozialen arteko lankidetza eta ekoizpen-bideen gaineko langileen jabetza sustatzen duen doktrinan oinarrituriko enpresak dira kooperatibak. Iñaki Heras

8 ***agente fiskal*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Zortzi lagun hil eta 22 zauritu ziren atzo, **Agente Fiskalen** Zerbitzuko egoitzan (Nazran) izandako leherketa baten ondorioz. ETC-prentsa

9 ***agente infekzioso*** *(corpusean ez dago; ETCn **44** agerraldi)*

Birus bat organismo baten zelula bizien barruan soilik erreplikatzen den **agente infekzioso** txiki bat da. ETC-entziklopedia

Gerra biologikoa toxinen edo **agente infekziosoen** erabileran datza. ETC-entziklopedia

Horrela, harreman sexualen bidez transmititzen den eta umetoki lepoko minbiziaz gain uzkiko, bulbako edo baita zakileko minbizia ere sorrarazten dituen **agente infekzioso** horren kontrol ginekologikoa bost urtean behin egingo da aurrerantzean. ETC-prentsa

Alzheimerraren jatorrian faktore-multzo batek parte hartzen duela susmatzen da (aurrejoera genetikoak, **agente infekzioso** jakinen bat, ingurumeneko toxinen ekintza eta abar aipatu dira), baina ez dago ezer argi. ETC-prentsa

Azken hori oso **agente infekziosoa** da untxietan, eta Australiako untxi-populazioa kontrolatzeko erabili zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azkenik, substantzia proinflamatorioa eta **agente infekzioso** desberdinen aurkako eragina duen a-TNFa ere jariatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 ***agente komertzial***

Inbidia zien lanbide liberala zutenei eta bulego--ordu jakinen mendean ez zeudenei: abokatuak, artistak eta **agente komertzialak** . Anton Garikano

Agente komertzial , enpresetako nagusi eta burtsako bisitari guztiak, goizeko orduetan lokala betetzen zutenak beren joan-etorri ardailatsuarekin -hamaiketakoa egiten, negozioak zertzen, koiuntura eztabaidatzen, posta bideratzen eta tarteka egunkariak aztertzen, gainbegiratzen edo kotizazioen buletina zikiratzen-, batera ez bazen bestera alde eginda zeuden. Anton Garikano

11 ***agente laranja***

Vietnamgo basoetan **agente laranja** izenez ezaguna egin zen 70 milioi litro belar-pozoi bota zituzten. Berria - Mundua

Dioxina gai industrial bat da; besteak beste, Ameriketako Estatu Batuek Vietnamen erabili zuten, **agente laranja** egiteko. Berria - Mundua

12 ***agente sekretu***

Bi **agente sekretu** bagina bezala. Tesiaren aitzakiaz Latinoamerikako erbesteratuekin biltzeko eta hitz egiteko aukera bazuen eta, **agente sekretua** zen aldetik, bereak zituen zereginen estaldura polita zenik ezin ukatu. Oskar Arana

Herrialde anitzetako **agente** sekretuak, espioiak eta espioi-ehiztariak, era guztietako isil-mandatariak, ekintzaileak, iheslariak, soldadu ohiak eta soldadu izatea amesten zutenak... guztiak koktel lehergarri batean. Alberto Ladron Arana

James Bond berberak ezin izan dio sorginen ehiza honi ihes egin: bere hurrengo filmean, lehen aldiz, Ian Flemingek sorturiko 007 **ajenteak** ez du zigarro bat bera ere erreko. Harkaitz Cano

13 ***agente zirikatzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Agente zirikatzailea alderdi edo gobernu bati lotutako pertsona bat da, talde politiko batek erabiltzen duena, gobernuaren aurka, legez kanpokoak edo konprometigarriak diren ekintzak eginarazi ditzan. ETC-entziklopedia

14 ***bidaia-agente*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Negozioa okertzen ari zaie **bidaia-agenteei** , eta agente asko hasiak dira hegazkin txartelengatik jasotzen dituzten komisioen murrizketa nabaritzen. ETC-prentsa

Rikardo gogoratu du Mirenek, maioristekiko bileretan topatu izan duen lankide handiustea, **bidaia-agente** on batek mundu osoa ezagutu behar duela-eta bere bidaldi exotikoez harrotu ohi zaiena. ETC-literatura, saiakera

Berlini buruzko errusiar gidaliburu batean, **bidaia-agenteek** eslogan hau darabilte beren burua iragartzeko: "Goiti ezazu zeure bandera pertsonala Alemaniako Reichstag berriaren gainean". ETC-literatura, saiakera

Adibidez, airelinea bateko erreserba-sistema ehunka **bidaia-agentek** eta erreserbetako langilek erabiltzen dute modu konkurrentean. ETC-zientzia, zuzenbidea

15 *burtsa agente*

Erregutzen zion aitari joan zedila, aholku eske, kanbio eta **burtsa agenteren** batengana, baina orduan aita sumindu egiten zen, afera hartan, gainerako guztietan bezalaxe, beti buruan sartzen zitzaion huraxe egin nahi izaten zuelako. Fernando Rey

16 *burtsako agente*

Mirandak burtsaren inguruko guztiak zekizkien, bere aita kanbio eta **burtsako agentea** zelako. Fernando Rey

Aita zena, gixajoa, Kanbio eta **Burtsako agentea** zuen. Fernando Rey

17 *finantza agente* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Galizian jaio, baina Madrilen hezi zen **finantza agente** bezala, eta BBVAko buru bihurtzerako, eskuineko agintarien babes osoa zuen. ETC-prentsa

Merkatuaren %6a suposatuko luke horrek, eta horretarako 25 bulego eta 50 **finantza agente** berri jarriko ditu. ETC-prentsa

Londres, nazioarteko banku lider bat. **Finantza agente** lizentziadun berrien talde bateko kideak elkarren artean lehiatuko dira oso mugatuak diren lanpostuak eskuratzeko. ETC-entziklopedia

18 *merkataritza agente*

Izan ere, **merkataritza-agente** gisa lan egiten zuen enpresa sendoa zenez, eta bera saltzaile ona, gauzak bere hartan jarraitzea zen logikoena. Migel Angel Mintegi

IUN-NEBko Jose Miguel Nuinek De Leonek Iraken egin duen "**merkataritza agentearen** lana» ez datorrela bat bere postuaren araberako zereginekin kritikatu zuen. Berria - Euskal Herria

Augustok eta haren ondorengoek funtzionario zibil onak atera zituzten erromatar negozio-gizon harraparietatik; Han Liu Pang eta haren ondorengoek aristokrazia txiki feudal harraparitik atera zituzten; Cornwallisek eta haren ondorengoek Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainiako **merkataritza-agente** harraparietatik atera zituzten. Iñaki Mendiguren

19 *polizia agente*

Estatuko oposizioburuak, John Brodgen kontserbadoreak, bere iritzia eman zuen gertaera horren inguruan: " **polizia agenteei** behar duten guztia eman behar zaie horrelako egoerak kontrola ditzaten», esan zuen Brodgenek. Berria - Mundua

Zerbait apokaliptikoa espero genuen tokian, **polizia agente** arruntak topatu genituen... ". Pablo Sastre

Informazio hori **polizia agente** batzuk eman ziotela gaineratu du. Berria - Mundua

20 *salmenta agente* *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Ni, orduan, zintzo esango dizuet, ni, sasoi hartan, saltzaile bidaiaria nintzen, merkataritza agentea, **salmenta agentea**, egia da, horixe nintzen orduan, eta ez dut ukatzen... eta bidaiatan egiten nuen! ETC-literatura, saiakera

Munduaren azken mugetara bere burua ez zeharkatzeko alderik alde joan zen zera, Jainkoa, eguzkia, Shakespeare, **salmenta-agentea**, bere burua errealitatean benetan zeharkatuz bihurtzen baita bera den horixe. ETC-literatura, saiakera

Eta berak, bere burua defenditzeko, erasoz erantzuten zion, oso egokia ere ez zirudiela berak eskuineko hatz nagian zeraman eraztuntxoak, aproposagoa zelako valentziar **salmenta-agente** batentzat euskal artista batentzat baino. ETC-literatura, saiakera

Gurea lurrindegi bateko **salmenta-agentea** zen. ETC-literatura, saiakera

Hitz egin genuen nazioarteko **salmenta agenteekin**, inbertsio funtsekin, ekoizleekin, zinemagileekin.... ETC-prentsa

Egitasmo horren bitartez, hizkuntza ez-hegemonikoetan grabatu eta postprodukzio fasean dauden Europako filmak aurkeztuko dizkiete ekoizle, banatzaile, **salmenta agente** eta programatzaileei, filmak amaitzen eta nazioartean zabaltzen lagun dezaten. ETC-prentsa

Ekoizle, banatzaile, **salmenta agente** eta programatzailez osaturiko audientzia batek hautatu du Raçaren lana: filma amaitzeko eta nazioartean banatzeko laguntza jasoko du orain lantaldeak. ETC-prentsa

Kataluniako aholkularitza erakunde batek **salmenta agente** batekin jarri gaitu harremanetan. ETC-prentsa

d) **Salmenta-agente** independenteak ere izaten dira publizitate-kontratuen hornitzaileak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mundu mailako merkatuegitura, berriz, banatzaileen eta **salmenta-agenteen** sareen bitartez antolatuta dago, eta eskualde zabaletarako delegazio komertzialak ireki ditu (Erdialdeko Ekialdea, Asiako hego-ekialdea, eta abar). ETC-zientzia, zuzenbidea

21 *zirkulazio agente* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Trafiko seinaleak errepide eta bideetan ibiltzen diren gidari eta oinezkoei beharrezko informazioa emateko panel, marka, argiak eta **zirkulazio-agenteen** keinuak dira. ETC-entziklopedia

-Nahikoa da -agindu zuen **zirkulazio agentea** bailitzan edo pentsatuz agian hura guztia dama joko txinatar bilakatuko zela-. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **agente aktibo** (3); **agente armatuak** (4); **agente bat** (21); **agente batek** (18); **agente baten** (6); **agente bati** (3); **agente batzuk** (4); **agente ekonomiko** (3); **agente espainiarra** (5); **agente espainiarrak** (6); **agente espainiarraren** (3); **agente eta** (11); **agente garrantzizko** (3); **agente gazteak** (3); **agente gehiago** (6); **agente gehiago izatea** (3); **agente gisa** (6); **agente hauek** (3); **agente hil** (3); **agente horiek** (3); **agente horren** (3); **agente izan** (4); **agente literario** (3); **agente sekretu** (7); **agente sekretua** (3); **agente sekretuak** (4); **agentea eta** (3); **agentea ez** (3); **agentea izatea** (3); **agentea zela** (3); **agenteak dira** (3); **agenteak eta** (4); **agenteak ez** (3); **agenteek eta** (5); **agenteek ez** (3); **agenteen arteko** (4); **aseguru agentea** (10); **beste agente** (8); **bi agente** (18); **bi agente eta** (3); **bi agenteak** (6); **bi agenteek** (5); **bi agenteren** (3); **ciako agente** (12); **ciako agente batek** (3); **ciako agentea** (3); **duten agente** (6); **egin zuen agenteak** (3); **espainiar agenteak** (3); **eta agente** (19); **eta agente sekretu** (3); **eta agenteek** (3); **eta agenteen** (4); **eta bi agente** (6); **fbiko agente** (6); **fbiko agenteek** (3); **mille agentea** (5); **mille agenteak** (9); **sdko agenteak** (4); **segurtasun agente** (3); **sekretuetako agente** (3); **zen agente** (3); **zen agentea** (3); **zerbitzu sekretuetako agente** (3); **zuen agenteak** (8); **zuten agenteek** (3)

---

agentzi ik **agentzi**a.

---

agentzia *(ETCn **34.979** agerraldi; orobat **agentzi** g.er eta **agenzia** g.er.)* **1** *iz* zeregin edo zerbitzu jakin batzuk kudeatzen edo ematen dituen enpresa.

Robert Caparekin beti lagun, Magnum **agentziaren** sortzaileetakoa. Edorta Jimenez

Etxebizitzak eskaintzen dituzten **agentziek**, automobil saltzaileek, produktu garestien egileek.. ø denek erabiltzen dute argudio hori pijoei eta burgestuei dirua alferrik gastarazteko kontzientzia arazorik sortu gabe. Jon Arretxe

Goizean goiz **agentziara** zihoala, itzulerako txartelak erostera alegia, katedralaren ondoan harri arrosa edo ia arrosa batzuk ikusi zituen. Bernardo Atxaga

Agentziak kontratatu nau eta ez dakit jabeak zeintzuk diren. Jasone Osoro

Inoiz edo behin joan izan dira higiezinen **agentziara** etxeak begiratzera. Harkaitz Cano

Agentziakoari emateko hamar-hamabi mila lira zituenen batek hartu ziola tokia. Josu Zabaleta

Ez zuen uste lanak hamabost egun baino gehiagotarako emango zionik, eta, bide batez, Kwara-ko Parke Naturalaz beste argazki saio bat egiteko asmoa zuen, bere ohiko **agentziari** zor zion enkargua. Iban Zaldua

Eta **agentzia** baten eskutik ere joan izango nintzen, baldin eta Tarifako lagun batzuek "Mahomaren lurretatik osteratxo bat egitera" gonbidatu ez banindute. Bernardo Atxaga

Orduko associated press **agentziako** agiria berriz irakurtzen baldin banuen, irratiko ahotsak eta azienda ñapurren marrakak jagoitik belarrian oihar, galbidean erratu "emazteki" baten biografia nire nezakeen: Itxaro Borda

Duela hiru urte izutzen hasi zen bertze **agentzien** eskaintzekin: "Borneo mendiz mendi", "Aneto eta Maladeta 70 urtetik goitikoentzat", etab. Aingeru Epaltza

2 (izenondoekin)

Thailandiakoak nahiz Filipinetakoak ugari zeuden, Santiren gozamenerako, baina Harryk ez zuen amore eman, ez zion pisukideari plazer hori eskaini nahi izan, eta azkenean,

besterik ezean, brasildarra kontratatu zuen "era guztietako etxeko lanak" eskaintzen zituen **agentzia** susmagarri baten bitartez. Jon Arretxe

II. motako akordioak ere izan ziren; enpresa, gobernuz kanpoko erakunde (GKE), **agentzia** espezializatu eta are gobernuen beren ekimenak izan ziren, borondate kutsu handiagokoak ordea, eta konpromiso maila ahulagokoak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iluntasuna perla-kolorea hartzen ari zen. "Hauek denak atzetik ditudan detektibeak dituk: onddo-kapelako gizonak, Bowery-ko eskaleak, sukaldeetako emakume zaharrak, tabernariak, tranbietako begiraleak, poliziak, emagalduak, marinelak, zamaketariak, lan **agentzietako** morroiak... Lopez de Arana

Etxebek, nik bezala, Ekonomia ikasi zuen; nik ez bezala, ekonomilari lana topatu zuen, analista gisa, burtsa-**agentzia** batean. Iban Zaldua

Espainiako bandera besteak baino gehiago bustitzen ari da Zerga **Agentziaren** eraikineko balkoi luzean, urteen joanean han dirauen armarri frankistaren zaintzapean. Urtzi Urrutikoetxea

[...] ideia bat izateko, horra datuok: 20 ikerketa institutu publiko (5.581 langile), 27 ikerketa institutu pribatu (4.028 langile), beste 10 ikerketa institutu, Gobernuak lagundutakoak (2.337 langile), goi mailako hezkuntzako 4 erakunde (2.311 langile), 11 gobernu **agentzia** (812 langile), eta 44 arrisku-industria (560 langile). Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bertako etxebizitza-**agentzia** bateko agente batek sei edo zazpi apartamentu erakutsi zizkidan harri gorriztako etxeetan [...]. Oskar Arana

4 *albiste agentzia*

Hala iragarri zuen astelehenean Efe **albiste agentziak**, ikastetxeetako iturriak aipatuz. Berria - Euskal Herria

Bosniako Tanjug **albiste agentziak** ere zabaldu zuen atxiloketaren berria. Berria - Mundua

Jimenezen arabera, **albiste agentzia** zenbaitek frantsesezko bertsioa hartu zuten aintzat gaztelerara itzultzeko. Berria - Ekonomia

Baina Bulgariako **albiste agentziak** atzo jakinarazi zuenez, Zdravko Georgiev Bulgariako medikuari lau urteko kartzela zigorra ezartzea erabaki zuen epaileak. Berria - Gaiak

Albiste-agentziak apartak dira euren saski-naskian horrelako "albisteak" biltzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez dakigu, baina **albiste agentziaren** arabera, ez dirudi hala ez denik. Iñigo Aranbarri

5 *berri agentzia*

"Gobernuak protagonista izan nahi duen arren, Chiracek Clemenceau-ren afera kendu behar izan dio eta berak zuzenean kudeatu», idatzi zuen atzo AFP **berri agentziak**. Berria - Gaiak

Milanen, esate baterako, Ansa **berri agentziarekin** elkarrizketa izan zuten. Berria - Euskal Herria

Beste hainbat **berri agentziari** eta telebistari bideoaren kopia eman genien. Berria - Mundua

Segidan, Interfax **berri agentziak** zabaldu zuen konpainiaren helbidea Tver hirian zegoela, Moskutik 200 kilometro ingurura, ipar-ekialdean. Berria - Ekonomia

Eliza katolikoko burua hil eta ordu laurdenera SMS mezu bat bidali zien Vatikanoak munduko **berri agentzia** nagusietako berriemaile bereziei. Berria - Harian

Bada, zein **berri-agentzia** edo hedabide hautatuko zuen eta, bere emazte legezko Martha Gellhorn kontrataturik zeukan Collier's aldizkaria hautatu zuen. Edorta Jimenez

Albistea Reuters **berri-agentziak** sinatzen du. Lutxo Egia

6 *bidaia agentzia*

-Bidaia agentziakoek gauza asko agintzen dute -segitu du Danek. Patxi Zubizarreta

Gero berriro jantzi, bainua ordaindu, oihalen arduradunari eskupekoa eman eta bisa bideratu ziezadakeen **bidaia-agentziaren** baten bila hasi naiz. Jon Arretxe

%4na pasa irabazi zuten TPI ipotxak eta Amadeus **bidaia agentziak**. Berria - Ekonomia

Barranquillako kaleetan paseatu eta dendak, jatetxeak, **bidaia agentziak**, gozotegiak, zapateriak ikusi ditut, kafea edan dut. Joseba Sarrionandia

Lehen taxia **bidaia-agentzia** baten parean geratu eta bidaia-txartelak ziruditenak eskuetan zituela atera zen handik Veronica, minutu gutxiren buruan. Harkaitz Cano

Epailearen sumarioan dagoen gauza bakarra da pertsona batek egindako adierazpenak, Nouvelles Frontieres **bidaia agentziako** arduradun batenak, alegia. Berria - Mundua

Hirugarrenean, hark lan egiten duen **bidaia-agentziara** deitzen du. Oskar Arana

Ba, hori da **bidaia-agentziakoek** eskaintzen diguten oparia, hemengo pasadizo hau ongi atera dela-eta. Joxemari Iturralde

7 *higiezinen agentzia*

Argibide guztiak jaso ditut **higiezinen agentziatik** eta apartamentu bat errentatuko dut. Javi Cillero

Gasteizko **higiezinen agentzia** batek etxebizitzaren merkatuak iaz izandako jokabidea aztertu du. Berria - Euskal Herria

Inoiz edo behin joan izan dira **higiezinen agentziara** etxeak begiratzera. Harkaitz Cano

8 *merkataritza-agentzia*

Arrisku moral hori [...] handiagoa da gaur egun, bankuek gero eta gehiago beren kontura esku hartzen baitute finantza-merkatuetan; izan ere, badute orain langile talde murritz batekin **merkataritza-agentzien** sare astunek ematen ez dizkieten irabaziak eskuratzeko aukera. Koro Navarro

7 *publizitate agentzia*

CATeko edo **publizitate agentzia** bateko erredaktore batek egingo zian, beste testu guztiok bezala... -Gabinek. Iñaki Iñurrieta

Bertan izan ziren Iragarri **publizitate agentziako** batez ere, EKT Euskarazko Komunikazio Taldeko produktuentzat lortzen du publizitatea Esti Amenabarro, Asier Arrieta EHUko irakaslea eta Publis **publizitate agentziako** Iñigo Fernandez Ostolaza. Berria - Euskal Herria

Bera apenas egoten den etxean: **publizitate agentzia** batean dabil lanean eta arratsaldeetan ingeleseko klaseak ditu. Harkaitz Cano

1928an San Francisco Review-en editoreek festa batera gonbidatu zuten eta han Elliott Taylor ezagutu zuen, **publizitate agentzia** baten jabea. Ramon Etxezarreta

Alas Norte **publizitate agentziarentzat** bost urtez lan egin ondoren, 1978an Laura Estevek Estudio TC izeneko bere agentzia sortu zuen. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agentzia arduratuko da (3); **agentzia bakarra** (3); **agentzia bat** (12); **agentzia batean** (10); **agentzia batek** (8); **agentzia bateko** (4); **agentzia baten** (18); **agentzia baten jabe** (3); **agentzia bati** (5); **agentzia batzuek** (3); **agentzia berezi** (3); **agentzia berezi bat** (3); **agentzia ere** (5); **agentzia eta** (8); **agentzia federalak** (4); **agentzia federalaren** (3); **agentzia federalaren arabera** (3); **agentzia federaleko** (4); **agentzia nagusiak** (4); **agentzia nasak** (6); **agentzia ofizialak** (5); **agentzia ofizialaren** (3); **agentzia ofizialaren arabera** (3); **agentzia propioa** (4); **agentzia sortu** (5); **agentzia sortzeko** (3); **agentzia zentralaren** (3); **agentzia zentraleko** (4); **agentzia zentraleko zuzendari** (3); **albiste agentzia** (3); **atomikorako nazioarteko agentzia** (4); **batuetako espazio agentzia** (3); **batuetako espaziorako agentzia** (4); **berri agentzia** (10); **beste agentzia** (3); **bidai agentzia** (4); **bidaia agentzia** (14); **bidaia agentzia baten** (5); **cia inteligentzia agentzia** (12); **da agentzia** (3); **dituen agentzia** (3); **ebaluazio agentzia** (3); **enplegu agentzia** (4); **espazio agentzia** (9); **espaziorako agentzia** (5); **espaziorako agentzia nasak** (4); **eta agentzia** (6); **eta kreditaziorako agentzia** (4); **etxe agentzia** (11); **etxe agentzia batean** (4); **etxe agentzia baten** (6); **europako espazio agentzia** (3); **euskal agentzia** (5); **informazio agentzia** (4); **inteligentzia agentzia** (16); **inteligentzia agentzia zentralaren** (3); **inteligentzia agentzia zentraleko** (4); **kataluniako zerga agentzia** (3); **kreditaziorako agentzia** (4); **lan agentzia** (3); **nazioarteko agentzia** (7); **prentsa agentzia** (5); **publizitate agentzia** (4); **uraren agentzia** (5); **zerga agentzia** (12); **zerga agentzia bakarra** (3)

aebetako espazio agentziak (5); **aebetako segurtasun agentziak** (3); **afp agentziak** (5); **agentziak atzo** (25); **agentziak atzo iragarri** (3); **agentziak atzo jakinarazi** (9); **agentziak atzo zabaldu** (3); **agentziak azaldu** (5); **agentziak bi** (3); **agentziak egindako** (5); **agentziak eginiko** (3); **agentziak ere** (3); **agentziak erredakzioa** (4); **agentziak esa** (9); **agentziak esan** (4); **agentziak eta** (8); **agentziak ez** (5); **agentziak herenegun** (3); **agentziak iaea** (3); **agentziak jakinarazi** (9); **agentziak jakinarazi zuenez** (6); **agentziak jasotako** (3); **agentziak nasa** (8); **agentziak planeta** (3); **agentziak planeta gorrira** (3); **agentziak polizia** (4); **agentziak polizia iturriak** (4); **agentziak wada** (3); **agentziak zabaldu** (10); **agentziak zabaldu zuenez** (6); **agentziak zabaldutako** (5); **agintariek agentziak** (3); **albiste agentziak** (20); **ap agentziak** (4); **ap berri agentziak** (3); **arabera agentziak** (4); **ari dira agentziak** (3); **arren agentziak** (3); **arte agentziak** (3); **atomikoaren nazioarteko agentziak** (17); **atomikorako nazioarteko agentziak** (7); **atzo agentziak** (3); **atzo efe agentziak** (3); **aurkako agentziak** (8); **aurkako munduko agentziak** (6); **batean agentziak** (7); **batek agentziak** (4); **baten ondorioz agentziak** (3); **batuetako espazio agentziak** (27); **batzordeak agentziak** (4); **berri agentziak** (40); **berri agentziak atzo** (4); **berri agentziak jakinarazi** (3); **bidai agentziak** (3); **bidaia agentziak** (5); **borroketan agentziak** (5); **da agentziak** (11); **daude agentziak** (3); **dela agentziak** (3); **dio agentziak** (5); **diote agentziak** (4); **dira agentziak** (22); **ditu agentziak** (9); **ditutze agentziak** (9); **dopinaren aurkako agentziak** (8); **du agentziak** (46); **du nbek agentziak** (3); **duen agentziak** (3); **dute agentziak** (28); **efe agentziak** (27); **efe agentziak atzo** (4); **efe agentziak jakinarazi** (3); **efe agentziak zabaldu** (3); **efe albiste agentziak** (7); **efe berri agentziak** (17); **eginiko erasoan agentziak** (3); **egunean agentziak** (3); **energia agentziak** (11); **energiaren nazioarteko agentziak** (4); **erasoa agentziak** (3); **erasoan agentziak** (3); **erasotan agentziak** (4); **errusiako espazio agentziak** (5); **esan du agentziak** (3); **espazio agentziak** (74); **espazio agentziak atzo** (7); **espazio agentziak azaldu** (3); **espazio agentziak esa** (9); **espazio agentziak nasa** (8); **espazio agentziak planeta** (3); **eta agentziak** (4); **europako agentziak** (4); **europako espazio agentziak** (33); **ez agentziak** (4); **gabe agentziak** (3); **gorenak agentziak** (5); **hainbat berri agentziak** (6); **hainbat erasotan agentziak** (3); **hil dira agentziak** (7); **hirigintza agentziak** (4); **informazio agentziak** (9); **ingurumen agentziak** (4); **kongresuan agentziak** (5); **legebiltzarrak agentziak** (3); **legeztatzeko agentziak** (6); **ministroak agentziak** (4); **munduko agentziak** (8); **nazioarteko agentziak** (32); **nazioarteko agentziak iaea** (3); **nazioarteko energia agentziak** (11); **nbek agentziak** (4); **ofizialean agentziak** (4); **ondorioz agentziak** (5); **poliziak agentziak** (3); **ppri agentziak** (3); **prentsa agentziak** (3); **presidenteak agentziak** (3); **sail ofizialean agentziak** (3); **salatu du agentziak** (3); **salatu dute agentziak** (3); **segurtasun agentziak** (3); **sendagaiak legeztatzeko agentziak** (3); **txandan agentziak** (3); **zerga agentziak** (4); **zuen agentziak** (7)

aebetako espazio agentziaren (5); **agentziako adituek** (3); **agentziako arduradun** (4); **agentziako arduradunek** (3); **agentziako buru** (9); **agentziako buru mohamed** (3); **agentziako buruak** (5); **agentziako esa** (5); **agentziako idazkari** (3); **agentziako idazkari nagusi** (3); **agentziako ikertzaileek** (3); **agentziako zientzialariek** (6); **agentziako zuzendari** (11); **agentziako zuzendari mohamed** (4); **agentziako zuzendaria** (8); **agentziako zuzendariak** (4); **agentziara deitu** (4); **agentziarako lan egiten** (3); **agentziaren arabera** (54); **agentziaren aurkako** (3); **agentziaren bitartez** (4); **agentziaren esa** (6); **agentziaren esanetan** (7); **agentziaren laguntza** (3); **agentziaren mars** (4); **agentziaren mars express** (4); **agentziaren nasa** (5); **agentziaren opportunity** (4); **agentziaren spirit** (4); **agentziari adierazi** (5); **agentziari azaldu** (4); **agentziari esan** (3); **agentziari eskainitako** (6); **agentziari eskainitako elkarrizketan** (5); **agentziari jakinarazi** (3); **albiste agentziako** (3); **albiste agentziaren** (4); **albiste agentziaren arabera** (4); **albiste agentziari** (4); **atomikoaren nazioarteko agentziako** (12); **atomikoaren nazioarteko agentziaren** (12); **atomikoaren nazioarteko agentziari** (3); **atomikorako nazioarteko agentziako** (13); **atomikorako nazioarteko agentziaren** (5); **aurkako munduko agentziako** (3); **babeserako agentziaren** (3); **baina agentziaren** (3); **batek efe agentziari** (4); **batuetako espazio agentziako** (10); **batuetako espazio agentziaren** (24); **berri agentziaren** (12); **berri agentziaren arabera** (11); **berri agentziari** (12); **bidaia agentziakoek** (3); **bidaia agentziaren** (3); **efe agentziaren** (10); **efe agentziaren arabera** (4); **efe agentziari** (17); **efe agentziari adierazi** (3); **efe agentziari azaldu** (3); **efe albiste agentziari** (4); **efe berri agentziaren** (5); **efe berri agentziari** (8); **energia agentziako** (3); **energia agentziaren** (5); **enplegu agentziaren** (3); **errusiako espazio agentziako** (4); **espazio agentziako** (37); **espazio agentziako esa** (4); **espazio agentziako zientzialariek** (6); **espazio agentziaren** (55); **espazio agentziaren arabera** (4); **espazio agentziaren esa** (6); **espazio agentziaren mars** (4); **espazio agentziaren nasa** (5); **espazio agentziaren opportunity** (4); **espazio agentziaren spirit** (4); **espazio agentziari** (3); **espioitza agentziako** (3); **espioitza agentziako buru** (3); **etxe agentziako** (4); **etxe agentzian** (4); **etxe agentziaren** (9); **etxebizitza agentziaren** (3); **europako espazio agentziako** (21); **europako espazio agentziaren** (25); **informazio agentziaren** (10); **informazio agentziaren arabera** (10); **informazio agentziari** (3); **iturriek efe agentziari** (4); **munduko agentziako** (3); **nazioarteko agentziako** (26); **nazioarteko agentziako buru** (3); **nazioarteko agentziako idazkari** (3); **nazioarteko agentziako zuzendari** (5); **nazioarteko agentziaren** (21); **nazioarteko agentziari** (3); **nazioarteko energia agentziako** (3); **nazioarteko energia agentziaren** (5); **press agentziako** (3); **press agentziaren** (4); **press agentziaren arabera** (3); **press agentziari** (5); **reuters agentziako** (3); **uraren agentziaren** (8); **zerga agentziaren** (4)

agentziei azaldu (3); **agentziei azaldu zietenez** (3); **agentziei esandakoaren** (3); **agentziei esandakoaren arabera** (3); **agentziek adierazi** (3); **agentziek adierazi zutenez** (3); **agentziek atzo** (15); **agentziek atzo zabaldu** (11); **agentziek eta** (3); **agentziek jakinarazi** (8); **agentziek jakinarazi zutenez** (4); **agentziek polizia** (4); **agentziek polizia iturriak** (4); **agentziek zabaldu** (30); **agentziek zabaldu dutenez** (7); **agentziek zabaldu zutenaren** (4); **agentziek zabaldu zutenez** (18); **agentzien arabera** (50); **agentzien artean** (3); **agentzien bidez** (3); **aipatuz berri agentziek** (5); **albiste agentziei** (3); **albiste agentziek** (3); **atzo berri agentziek** (11); **berri agentziei** (10); **berri agentziei azaldu** (3); **berri agentziei esandakoaren** (3); **berri agentziek** (85); **berri agentziek atzo** (13); **berri agentziek jakinarazi** (8); **berri agentziek polizia** (4); **berri agentziek zabaldu** (27); **berri agentzien** (40); **berri agentzien arabera** (39); **etxe agentzien** (3); **informazio agentziek** (11); **iturriek berri agentziei** (4); **zuten agentziek** (3)

---

agenzia ik **agentzia**.

---

agerarazi ik **agerrarazi**.

---

agerbide *(ETCn **82** agerraldi; orobat **agerpide** **66** agerraldi)* *iz* seinalea; adierazpidea.

Hauek gauza izateaz gain beste gauza batzuen **agerbide** ere badira. Imanol Unzurrunzaga

Gizartea euskaltasunaren **agerpideak** berreskuratzen ari zen, eta orduan hasi ginen frontoietako kantaldietara joaten, dantza eskolara, estudiantinarekin hainbat herritako euskal jaietara. Ana Urkiza

Zuzentzaileak jakin baitaki zakurra, arabiarrentzat, animalia lohia dela, zerria bera den bezala, eta hortaz ezjakintasun itzelaren **agerpidea** dela pentsaztea ezen Lisboako mairuak, hain saiatuak izaki, zakur-saldoaren ondo-ondoan biziko zirela. Jon Alonso

Orobat, argi frogatu da, bestalde, braillez irakurtzen duten itsuengan, **agerbide** izugarri handia duela irakurtzeko hatzak garun-azalaren ukimen-aldeetan. Xabier Olarra

Burugogorkeriaren sinbolo eta **agerbiderik** zabalduena mandoa da, oso abere argia. Xabier Olarra

1960ko hamarraldiko eurodolarren merkatuen eraketa eta industria-ekoizpenak soldata apaleko lekuetara eramatea dira, dudarik gabe, logika honen **agerpiderik** argienak. Koro Navarro

Oposizioak ez du legezko **agerpiderik** eta adierazpen eta prentsa askatasuna zorrotz kontrolatzen ditu Estatuak. Berria - Harian

Ama baten fidantziaz eta haur baten inozentziaz neurriz gain baliatu ondoren, jauna, ez zaitu harrituko, dudarik gabe, sekula gehiago onartua ez bazara adiskidantzarik egiazkoenaren **agerbideei** zuk adeiak oro ahantzirik baizik erantzun ez diezun etxean. Jon Muñoz

Iragan asteko ate idekien **agerbidea**. Herria

---

agergailu *iz* agergarria.

Agergailu ez duzue aurkituko histegietan bainan ulerterretxa da: agertu aditza gailu aitzizkia. Xipri Arbelbide

Segur baino segurrago beharrez, Jainkoari galdatzen dio bere bokazionearen bigarren **agergailu** bat. Xipri Arbelbide

---

agergarri *(orobat **agertgarri** g.er.)* **1** *iz* erakusgarria.

Estatu-egitura erregulatzaileen hausturak, alabaina, nazioz gaindiko erregulazio- egituren posibilitatearen -eta egokitasunaren- auzia sortu du, eta horren **agergarri** dira eskualdeen integrazio-saioak eta alde askoko erakundeen aginpide gero eta handiagoa. Koro Navarro

Ondo pentsatzen jarri ezkero, *Euskaldunon Egunkaria* ixtearen arrazoietako bat euskararentzat askatasun gehiago ekartzea zela Gobernutik deklaratu zutenen desarrazoi modua bera ere bai, alde bateko eta besteko determinazio nazionalen analogia, kidetasun eta osagarritasunaren **agergarri**. Iñaki Segurola

Nostalgiaren sendagailu bat izan liteke, edo, hobeto agian, etorkizunarekiko itxaropenaren **agergarri**. Xabier Mendiguren Elizegi

Farr jaunaren modu berean erre nuen zigarroa, ohitura gaiztoen **agergarri** zintzilikari hura. Koro Navarro

96an eta 97an idatzi dituen nobeletan, aldiz, estilo oparo eta emankor horren dekantazio moduko bat antzematen da, soiltze aldera egindako ahalegin bat, baina estilo horren nortasun-**agergarri** funtsezkoenak galdu gabe, noski. Jon Alonso

Zeru-lurrak sortu zituenak sortu zituen munduko bizidun eta bizigabe guztiak ere, eta honen **agergarri** azalduko ziren argazkietan erleak eta loreak, edo zaldiak eta behorrak, edo gorilak eta tximinoak, eta, guztien gainetik, egilearen emaitza gorena: gizakia. Xabier Mendiguren Elizegi

Horixe da Miranderen ideien marko orokorra nolanahi ere, eta horren **agergarri** sinpleago bat izan nahi du bakarrik, adibide gisa, Ortega eta Barojaren izkribu biren ondorengo azalpentxoak. Joxe Azurmendi

Ideia argi eta bereziak gabe, irakurleak eklektizismo ilunpilatu bat topatzen badu, zilegi bekio garaiko informazio edo kulturaren **agergarritzat** jotzea hori ere. Joxe Azurmendi

Miguel Haran, elkartearen zuzendariak, orroitzapen bat ezarri du Dominiquen hobi gainean, pilotaren alde egin dituen lan guzien **agertgarri**. Herria

2 (izenondo gisa)

Diote seinale nabarmen, nabari, ikusgarri, **agergarri**, erakusgarri horiek (hauta zuk irakurlea, eman ditudan izen ondoetan zein diren egokienak *visible, ostensible* eta *ostentatoire* adierazteko) izan diten mantalina edo kippa edo giristino kurutzea erakusten dutela argi eta garbi ekarlearen nortasuna. Herria

Zahardiek, tradizioaren ikur **agergarria** eta Gaztediek orainaren iraganarekiko lotura bizia zelako deitzen zuten batera, kantatzera, bere euskalki hain berezian istorio kontatzera, afari edo bazkari herrikoietan parte hartzera oro bat. Itxaro Borda

---

ageri **1** *izond* begian bistan dagoena, ezkutua ez dena.

Lehentxeago dastatu zuen gozotasunak eragiten zion nolabait horretara; sarri izaten zuen haren bisita, eta plaza eta toki **agerietan** aurkitzen zelarik ere, otoitzera bultzatzen zuen. Askoren artean

Gutienekoa zen haren poz **ageria**, albistea ematean. Aingeru Epaltza

Burla-haizea, haien injenuidade mugagabeagatik, alaitasun apika itxurazko baina beti **ageriagatik**. Xabier Mendiguren Elizegi

Txokoren grina **ageriak** taldea nahasi zuen. Itxaro Borda

Sinesmenak, eginbide eta funtzioak bide **ageria** idekitzen dizute. Piarres Aintziart

Bitartean, nire atzean, eta segur aski ispiluaren aurrean, nire bihotzeko idoloa kantuz ari zen, marmarian, txioka, modako ahaireak txistuka haizatzen, arinak eta pikaroak, eta haren kantu, marmari, txio, txistu hartan burla nota klaroa zegoen, burla **ageria** ! Matías Múgica

Makur ari gaituk, hain maiestatetsua izaki halako bortxa **ageria** erakutsiz, zeren zaurtezina baita bera airearen pare, eta gure ukaldi alferrok irribide gaizto. Juan Garzia

Historiaren bi mailen eskema honek, eta batez ere gertakarizko historia **ageriaren** inesentzialtasunak, aise erreparatzen da, historiaren teologiarekin legez, historiaren filosofia krausistarekin ere antz handitxoa du -hori idealista da-, Giner de los Ríosekin bereziki. Joxe Azurmendi

2 (adizlagun gisa)

-Zer? -eraztunarena ez zitzaidan gustatu, **ageriegi** uzten baitzuen zuri oparitutakoa ez zeneramala jantzirik; aipatu izan ez bazenu sikiera, baina ez, zure ezintasunean ez zitzaizun besterik otu. Eider Rodriguez

Eta zenbat eta gorputz-atal bat gorago eta **ageriago** egon, zenbat eta ederragoa eta bikainagoa izan, orduan eta itsusiagoa gertatzen dela hartan ikusten den lohidura, etab. Askoren artean

3 ***ageri denez*** *adlag* antza denez, agidanez.

Ageri denez , bigarren aldia arte, kontuan hartu ziren ahoskatzean gertatutako aldaketak; hortaz, historiako etapa bati grafiako etapa bat dagokio. Isabel Arrigain

Bertan **ageri denez** , mundu industrializatuaren baitan, alde batetik, eta Asiaren eta herrialde industrializatuen artean, bestetik, bizitzamailek berdintzera jotzen dute, baina ez da gauza bera gertatzen garapen-bideko beste eskualdeetan. Koro Navarro

Ageri denez , hemen Karlos Setimo bilobak, Carlos V bere aitonaren hizkera elezuri eztitsu bera hartzen zuen. Txillardegi

Lekua Hoesdheara parke zoragarria, antzina, **ageri denez** , belodromoa izandako lekuan dago. Edorta Jimenez

Loa eta gaua, bistan da, batera datozela, eta **ageri denez** , Txomin ere gautar izaki. Patziku Perurena

Ageri denez , EAJk beste jarrera bat izan balu oso bestelako emaitzak ikusiko ziratekeen. Berria - Harian

4 ***ageri izan***[1] da *ad* ikusgai egon, begi bistan egon.

Izan al da juduak baino herri hilketa zaleagorik? Forma guztietan **ageri da** haren historiako edozein orrialdetan.. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Familiaren alde argiak eta ilunak zure obran **ageri direla** esango zenuke? Ana Urkiza

Eta munduko entziklopedia guztietan, biografia guztietan eta zientzia-liburu guztietan ilea harrotuta **ageri zen** Van't Hoff. Unai Elorriaga

Zerbitzarien artean eder **ageri zen** Nausikaa, bere beso zuriekin. Juan Kruz Igerabide

Leihoa ireki zuen; horma zabala zen eta, leiho barrenean gorputza luzatuz, orain bere bistapean **ageri zen** , ezpainetan zigarro okertua zerabilen Gastoni: Pablo Sastre

Nik segidan ezetz, baina **ageri zatekeen** ez nuela lorik egin edo behar zena jan. Piarres Aintziart

Beste argazki batean, emakumeek kantatu zituzten koplak **ageri ziren** , bere tatxoi eta guzti, betiko kuadrikuladun orrian, seguraski Bic laranjaz idatzirik. Andoni Egaña

Nerea eta Sebas **ageri ziren** , etxeko ezkaratzean; plano motzean eta mugiturik Nerea, eta atzeko planoan, hamaka batean etzanda, Sebas, zigarroa erretzen. Eider Rodriguez

Gizarte onean arrakasta izateko aukera garbiak **ageri ditun** hire soslaian. Antton Olano

Ederra **ageri zen** Donostia egun hartan, Paris txikia. Lander Garro

Amaierarik ez duen zelaia begiratuko duzu ea aita **ageri den** , eta puntu bat ikusiko duzu han urrun. Joseba Sarrionandia

Eman zioten txostenean, bi orri idatzi eta argazki batez osatua nolabait esateko, zendua eta haren lankiderik hurbilenak **ageri ziren** . Migel Angel Mintegi

Horko kontagai batzuk beste kultura batzuetan ere **ageri direnak** dira. Jose Antonio Mujika

Ikuspegi nazional ezaz gainera, beste euskaldunenganako begirune txikia ere **ageri da** jarrera horretan. Koldo Zuazo

Horma zuri pintatu berrian pintada hauxe **ageri zen** , sarrera ondo-ondoan: Karlos Linazasoro

Liburu erdian, berriz, orrialdetatik kanpora bere muturra erakutsiz, paper bat **ageri zen** . Gotzon Garate

Lehen bezain gazte eta eder **ageri zen** . Gotzon Garate

Ez dituzte erabat etengo lanarekin dituzten harremanak, etxetik egingo dutelako ahal dutena; eta, lanerako itzulera ziurtatua ez izan arren (ziurtasun hori inork ez du inon), nahikoa seguru **ageri dira** beren egoeraz. Arantxa Iturbe

Tauler fidagaitz **ageri da** "Parisko maisu handi"-ekiko "liburu handitan" irakurri arren "bizitzaren liburuaz ezer ez dakitenekiko" (78. Joan Mari Lekuona

Ilehoriak Veronica Laken eta Alan Ladden film bat ikustera eraman ninduen behin; filmean gangster asko **ageri ziren** pistolekin destatuz eraso egiten zutenak. Pello Lizarralde

5 ***ageri izan***[2] da *ad* garbi egon, ezagun izan.

Ageri da bestalde lagun horiek ez dutela bihotzeko daldara minberarik sekula sufritzen! Itxaro Borda

Ageri zen , irakurri nahi zuela baina ez zela ausartzen. Daniel Landart

Jende bihotzgogorrak zaintzen zituela **ageri zen** . Gotzon Garate

Gizon argia zela **ageri da** bere bertsoetatik, bai eta ere laneko gozamenetik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aberei ere pentsutzat baba larria ematen zitzaien askotan, eta halakoen pare jo ohi zen, **ageri denez** , baba jaten zuen jendaje behartsua. Patziku Perurena

Ageri zen , hobeki erran usmatzen zen, itsasargi gordean ez zegoela zaintzailerik. Aurelia Arkotxa

Aipatu hitzetarik **ageri da** bazutela hortakotz arrazoina frango. Xipri Arbelbide

Loa eta gaua, bistan da, batera datozela, eta **ageri denez** , Txomin ere gautar izaki. Patziku Perurena

- **Ageri** duk Nafarroako erregeen odola dabilela hire zainetan -erran zidan egun batean. Aingeru Epaltza

6 ***ageri izan***[3] du *ad* ikusgai izan, erakutsi; ezagun izan.

Lelo hori erabili zuen Ezker Batuak orain arteko ekitaldirik deigarriena egiteko eta bai etorkinek bai bertokoek aldarria barneratu zutenaren itxura **ageri zuten** . Berria - Euskal Herria

Etxeberri aitzineko zuhaitzpean, zurezko habe koloreztatuan itsatsi du Schoenbergerek goizaburu zehargia horrek barnean **ageri dituela** telebixta zahar baten erraiak... Herria

Vinyoli kataluniarrak dio poeta baten hitzenganako interesa ez dela hitz horiek **ageri duten** esanahiak sortua, ezkutuan gorderik duten zeraren zera definiezinak eragina baino. Anjel Lertxundi

Oinazea ere **ageri zuen** zimurrez jositako aurpegi hark, baina oinaze gehienak ez bezala, amonaren oinazea goxoa zen, irekia, zuhurra, eztia ia zera bezala... Zer bezala? Jon Muñoz

Gerrian pistola handia **ageri zuela** , sonbrerua belarrietaraino, bibote gorriko polizia arrunt lodi batek eskuarekin aurrera keinua egiten zuen. Iñaki Zabaleta

Katuak, gorputzaren inarrosiaz, bizirik dagoela **ageri du** , baina ez du mugitzeko ahaleginik egin. Itziar Otegi

Begitarte beldurgarria **ageri zuen** , gorrotoak marraztua. Aritz Gorrotxategi

Testuak **ageri zuen** ordenamenduagatik, poema bat. Anjel Lertxundi

Ez zuen pentsatzen bera ere epaitzen ari zirela eta bera ere urkatu egingo zutela; axolagabetasun sakona **ageri zuen** . Jose Morales

Urrezkoak ziren hagin haietako bi, atzamar potoloetan distiratsu **ageri zituen** bi eraztunen modukoak. Paddy Rekalde

Elgeta oso gustura zegoen Epelarreko ikasleak **ageri zuen** trebetasuna ikusita. Koldo Izagirre

Aurpegia lasai **ageri du** egunsentiaren eguzki argitan. Xabier Paya

Zelak mailu txiki batzuk **ageri zituen** bi aldeetan, larru gorrixkan itxuratuak. Aingeru Epaltza

7 ***gorde-agerika*** *adlag* gordetzen eta agertzen.

Egunsentia leihoaz bestaldean, baso esnatzen hasia, milaka txoriren kantu ozenak, zirrimarra argitsu baten antzera ihi mehen artean **gorde-agerika** doan errekatxo

dizdizaria, bainatzera inguraturiko ume biluziz beterik. Jose Morales

8 *gorde-agerka* *adlag*

Hitz jolasguratuak elkarrekin gertatzen dira jendeen aho-mihitan, elkar igurzten dute, adiskidetuz eta haserretuz orobat, **gorde** -agerka betiere, elkarretaratuz eta elkarretarik partituz etengabe, badoaz eta badatoz. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

ageri agerian (71); **ageri agerikoa** (9); **ageri bada** (9); **ageri baita** (36); **ageri baitira** (12); **ageri baitzen** (23); **ageri baitziren** (14); **ageri bat** (29); **ageri bat zabaldu** (7); **ageri batean** (18); **ageri baten** (15); **ageri baten bidez** (12); **ageri da** (831); **ageri da bere** (8); **ageri da bertan** (11); **ageri da ez** (7); **ageri da hor** (7); **ageri dela** (34); **ageri den** (236); **ageri den bezala** (10); **ageri dena** (27); **ageri denez** (48); **ageri dira** (461); **ageri direla** (22); **ageri direlako** (7); **ageri diren** (155); **ageri direnak** (23); **ageri direnean** (7); **ageri ditu** (7); **ageri du** (30); **ageri duen** (13); **ageri duk** (9); **ageri dute** (15); **ageri duten** (9); **ageri ere** (7); **ageri eta** (22); **ageri ez** (90); **ageri ez den** (11); **ageri ez diren** (11); **ageri izan** (10); **ageri ohi** (24); **ageri ohi da** (11); **ageri omen** (20); **ageri omen da** (7); **ageri zaigu** (41); **ageri zaigun** (7); **ageri zaio** (15); **ageri zaion** (7); **ageri zaizkigu** (19); **ageri zela** (20); **ageri zen** (726); **ageri zen bere** (8); **ageri zen eta** (9); **ageri zena** (18); **ageri zirela** (12); **ageri ziren** (482); **ageri ziren han** (9); **ageri zituela** (8); **ageri zituen** (42); **ageri zituzten** (8); **ageri zitzaidan** (8); **ageri zitzaion** (27); **ageri zitzaizkion** (14); **ageri zuela** (11); **ageri zuen** (101); **ageri zuena** (14); **ageri zuten** (29); **alde ageri** (7); **argazkiak ageri** (7); **argazkian ageri** (14); **argazkietan ageri** (7); **argi ageri** (47); **argi ageri da** (29); **argiago ageri** (7); **arrastoak ageri** (8); **artean ageri** (19); **asko ageri** (13); **askotan ageri** (8); **azalean ageri** (8); **baikor ageri** (16); **baikor ageri da** (8); **baita ageri** (7); **bakarra ageri** (8); **bakarrik ageri** (14); **bat ageri** (260); **bat ageri da** (91); **bat ageri zen** (110); **bat ageri zuen** (14); **bat ere ageri** (10); **batean ageri** (27); **batzuetan ageri** (9); **batzuk ageri** (46); **batzuk ageri dira** (12); **batzuk ageri ziren** (21); **beltzak ageri** (12); **beltzak ageri ziren** (9); **bera ageri** (17); **bertan ageri** (17); **besterik ageri** (7); **betea ageri** (7); **beterik ageri** (9); **beti ageri** (14); **bezala ageri** (25); **bi ageri** (7); **biluzik ageri** (12); **da ageri** (80); **da inon ageri** (11); **dela ageri** (13); **dira ageri** (24); **distiratsu ageri** (10); **eder ageri** (7); **emakume bat ageri** (9); **ere ageri** (101); **ere ageri da** (24); **ere ageri dira** (20); **ere ageri zen** (10); **ere ageri ziren** (7); **eta ageri** (16); **eta garbi ageri** (9); **ez ageri** (25); **ez da ageri** (74); **ez dela ageri** (9); **ez dira ageri** (18); **ez zela ageri** (10); **ez zen ageri** (65); **ez ziren ageri** (14); **ez zuen ageri** (9); **gabe ageri** (9); **gainean ageri** (9); **gainetik ageri** (7); **garbi ageri** (27); **garbi ageri da** (12); **gehiago ageri** (22); **gisa ageri** (20); **gorri ageri** (11); **gutxi ageri** (7); **guztiak ageri** (9); **guztietan ageri** (19); **hala ageri** (10); **han ageri** (26); **han ageri zen** (10); **handi bat ageri** (7); **hantxe ageri** (13); **hartan ageri** (8); **hemen ageri** (11); **hitza ageri** (7); **honetan ageri** (13); **hor ageri** (37); **hor ageri da** (21); **hori ageri** (16); **horretan ageri** (13); **hortarik ageri** (9); **hortarik ageri da** (7); **hortik ageri** (13); **hortik ageri da** (9); **hutsik ageri** (12); **inon ageri** (49); **inondik ageri** (19); **inor ageri** (20); **irudiak ageri** (7); **itxaropentsu ageri** (10); **izena ageri** (16); **izenak ageri** (7); **jantzita ageri** (7); **lasai ageri** (8); **liburuan ageri** (18); **lotua ageri** (7); **loturik ageri** (14); **maiz ageri** (21); **maiz ageri da** (11); **nabarmen ageri** (24); **nola ageri** (11); **non ageri** (10); **nonahi ageri** (21); **nonahi ageri ziren** (10); **oraino ageri** (8); **pozik ageri** (16); **prest ageri** (7); **samar ageri** (10); **ugari ageri** (7); **uzkur ageri** (10); **zela ageri** (12); **zen ageri** (70); **zen inon ageri** (20); **zen inondik ageri** (7); **zen inor ageri** (12); **zergatik ageri** (8); **zerrendan ageri** (11); **ziren ageri** (16); **zuen ageri** (10); **zuri ageri** (9)

baino ageriago (8)

ageri agerian (71); **agerian da** (7); **agerian dago** (27); **agerian daude** (11); **agerian egon** (8); **agerian emanak** (7); **agerian eta** (23); **agerian ez** (20); **agerian ezarri** (15); **agerian gelditu** (137); **agerian gelditu da** (44); **agerian gelditu dela** (7); **agerian gelditu zen** (41); **agerian gelditu ziren** (8); **agerian geldituko** (22); **agerian geldituko da** (9); **agerian gelditzen** (42); **agerian gelditzen ari** (11); **agerian gelditzen da** (12); **agerian gera** (8); **agerian geratu** (197); **agerian geratu da** (53); **agerian geratu dela** (11); **agerian geratu dira** (11); **agerian geratu zen** (53); **agerian geratu ziren** (18); **agerian geratuko** (24); **agerian geratuko da** (9); **agerian geratzen** (58); **agerian geratzen ari** (9); **agerian geratzen da** (21); **agerian jarri** (101); **agerian jarri du** (9); **agerian jarri dute** (7); **agerian jarri eta** (11); **agerian jarri nahi** (8); **agerian jarri zuen** (11); **agerian jarriko** (17); **agerian jarriz** (14); **agerian jartzea** (21); **agerian jartzeko** (24); **agerian jartzen** (104); **agerian jartzen du** (28); **agerian jartzen dute** (7); **agerian utzi** (446); **agerian utzi behar** (7); **agerian utzi ditu** (15); **agerian utzi du** (95); **agerian utzi duela** (9); **agerian utzi duen** (7); **agerian utzi dute** (39); **agerian utzi nahi** (27); **agerian utzi zituen** (11); **agerian utzi zuen** (88); **agerian utzi zuten** (34); **agerian utziko** (27); **agerian utzirik** (13); **agerian utzita** (13); **agerian utzitako** (9); **agerian utziz** (71); **agerian uztea** (18); **agerian uzteko** (69); **agerian uzten** (312); **agerian uzten ditu** (14); **agerian uzten du** (95); **agerian uzten duela** (17); **agerian uzten duen** (12); **agerian uzten dute** (57); **agerian uzten duten** (10); **agerian uzten zuen** (14); **agerian zegoen** (17); **agerian zeuden** (8); **agerian zituela** (11); **agerian zituen** (9); **agerian zuela** (8); **agerian zuen** (12); **aurpegia agerian** (11); **baina agerian** (9); **bat agerian** (36); **beharra agerian** (9); **burua agerian** (8); **da agerian** (32); **dagoela agerian** (11); **dela agerian** (24); **dela agerian uzteko** (7); **den agerian** (8); **dena agerian** (11); **denen agerian** (11); **dira agerian** (7); **direla agerian** (7); **ditu agerian** (7); **dituzte agerian** (8); **du agerian** (44); **duela agerian** (14); **dute agerian** (14); **dutela agerian** (9); **emaitzek agerian** (7); **ere agerian** (52); **ere agerian geratu** (10); **ere agerian utzi** (13); **ere agerian uzten** (7); **eta agerian** (93); **eta agerian geratu** (13); **eta agerian jarri** (7); **eta agerian utzi** (20); **eta hori agerian** (8); **eta horrek agerian** (10); **ez agerian** (12); **eza agerian** (10); **falta agerian** (7); **gabeziak agerian** (9); **gelditu zen agerian** (13); **guztiak agerian** (10); **hain agerian** (7); **honek agerian** (20); **honek agerian uzten** (8); **hori agerian** (41); **hori agerian utzi** (7); **horiek agerian** (23); **horiek agerian uzten** (11); **horrek agerian** (39); **horrek agerian utzi** (10); **horrek agerian uzten** (22); **hortzak agerian** (12); **ipurdia agerian** (9); **jarrera agerian** (7); **nagusitasuna agerian** (8); **oso agerian** (19); **porrota agerian** (12); **txostenak agerian** (7); **utzi du agerian** (12); **utzi zuen agerian** (16); **uzten du agerian** (18); **uzten dute agerian** (8); **zen agerian** (30); **ziren agerian** (12); **zituen agerian** (13); **zuela agerian** (7); **zuen agerian** (26); **zuten agerian** (10)

ageri agerikoa (9); **ageriko arrazoirik** (12); **ageriko arrazoirik gabe** (10); **ageriko da** (28); **ageriko dira** (9); **ageriko eta** (7); **agerikoa da** (121); **agerikoa dela** (10); **agerikoa den** (9); **agerikoa eta** (7); **agerikoa ez** (8); **agerikoa izan** (14); **agerikoa zen** (47); **agerikoagoa da** (9); **agerikoak dira** (18); **agerikoak ez** (7); **ere agerikoa** (7); **eta ageriko** (15); **eta agerikoa** (11); **eta agerikoak** (8); **gero ageriko** (7); **hori agerikoa** (9); **oso agerikoa** (14)

---

ageriagotu, ageriago(tu), ageriagotzen da/du *ad* ageriago gertatu, ageriago jarri.

Mikelek kemenez bortxatu zituen kordelak, **ageriagotu** egin zitzaizkion samako zainak eta mikrora hurbildu zen. Unai Iturriaga

---

agerian 1 *adlag* begien aurrean.

Ez zen garaia oraino, eta **agerian** bizi ziren. Menane Oxandabaratz

Agerian zegoen, lehenago horretaz pentsatu izan balu, Fernandok bere bakardadean hil beharra zeukala, bere ohean, edo bere gelako sofan, argazkien irudi beltzen liburuen testamentuaren artean. Lutxo Egia

Aztalak **agerian** eramatearen arriskua J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina kontraesan hori **agerian** dago edozein azterketa, iritzi edo filosofiarentzat. Jenaro Garate

Eta orduantxe neskatoa, ezagutzen ez zutena, desafioka bezala (halaxe esan zidan semeak, behintzat), hankartean, gona motzetik **agerian**, azpitik, gauza txurixka borobil bat zintzilik zekarrela. Karlos Linazasoro

Predestinazioaren teoria hau indartu nahi izanez gero, hona Eustakioren beste poema-zati bat, 1966koa eta Arestiren Harri eta herri-ren eragin formala **agerian** duena, edukietan lehengo lepotik segitzen duen arren (hemen ere, "Ama" dioenean ez da Arantxa Benito, Ama Euskara edo Ama Euskadi baizik): Xabier Mendiguren Elizegi

Jo dezagun klimatologiaren abantailetara: bere apaletan hor dira gordeta, baina **agerian** nahi dituenarentzat, hotz-beroen datuak, euri eta prezipitazioenak eta nahibeste kontu eguraldiaren inguruko. Pello Zabala

Gero, **agerian** saiatu nintzen, baina pianoa jotzerakoan bezala, ahal nuen sottigliezza guztiaz. Anjel Lertxundi

Bekarrak **agerian**, ahotsa urratuta, zotinak tartean behin. Unai Iturriaga

Ez zeraman gorbatarik, eta alkandora irekita zekarren, **agerian** bularra, larrua bezain ile lodiaz estalia. Koro Navarro

Hawaiar alkandora mahuka-motz bat zeraman, bakeroen gainetik **agerian**. Koro Navarro

Sukaldeko ontzien artean / botila hutsak **agerian**; / Ai! Edan didaten bizitza / berreskura ahal baneza! Pako Aristi

Altxatu nintzenean, galtzek beheraka irrist egin baitzuten, nire galtzontziloen mutur bat bistara **agerian** zen. Jesus Mari Mendizabal

Bere sor-tokia **agerian** eta bixtan dueno, maiz gibelera behatzen du, bihotzak min egiten dio, nigarra dario begietarik, gogo guziak etxeko alderat jauzi egiten dio. Xipri Arbelbide

Aulki gainean zegoen egunkaria hartu du lotinantak, eskuetan darabil nire argazkiak **agerian** utzi dituela ohartu barik. Koldo Izagirre

2 *ageri-agerian*

Betazalak hetsiak izanez, betileak beherean eta **ageri-agerian** aurkitzen ziren. Daniel Landart

Belarri erdia **ageri-agerian** zegoen. Joanes Urkixo

Esaldia osatu nuenean jaiki egin nintzen, orri laurdena hartu eskuetan, eta, irakaslearen mahairaino joanik, haren gainean laga nuen **ageri-agerian**. Pedro Alberdi

Batzuek **ageri-agerian** dauzkate ezaugarriak; beste batzuek ezkutuago. Unai Elorriaga

Batzorde karlistek **ageri-agerian** jarduten zuten. Koro Navarro

Marchand saltokiaz baliatu zen bere krimenak estaltzeko, Egdar Allan Poeren "Eskutitz ostua" ipuinak erakusten digun teknika berberaz: ezkutatu nahi dena **ageri-agerian** ipiniz. Iban Zaldua

Ez zuen apain ibiltzea gogoko; erdeinu handiz begiratzen zion Louiseri, honek, xingolazko korapiloak **ageri-agerian**, adarra jotzen zionean lepoko zapia oker lotua zeramalako. Karlos Zabala

Dena, gainera, gorri guztien mobilizazio orokorraz alaituta, zeinek, berehala ikusi zen bezala, gora eta behera ibiltzeko zeregina baitzuten, "ezaxolarik duinena" erakutsiz, zapi eta gorbata gorriak **ageri-agerian** zituztela. Koldo Biguri

Milanen, esate baterako, Ansa **berri agentziarekin** elkarrizketa izan zuten. Berria - Euskal Herria

Beste hainbat **berri agentziari** eta telebistari bideoaren kopia eman genien. Berria - Mundua

-Nik horrela pentsatzen dut, baina Marie oso ideia finkoetakoa zen, gurasoen pentsamoldea **ageri-agerian** zuen. Iñaki Zabaleta

Hartan, inguruan begiratu eta han non ikusten dudan **ageri-agerian** kartazal bat, Cook&Son konpainiakoa. Anton Garikano

Arrosarioa eskumuturrera lotu nuen, **ageri-agerian**. Aingeru Epaltza

Aipatu ikerketan, **ageri-agerian** gelditu zen masa-hedabideek Euskal Herrian duten sinesgarritasun-defizita, herritarren begia eta belarria asko zorroztu direlako azken urteotan. Txema Ramirez de la Piscina

Haren lotsaizun guztiak **ageri-agerian** utzi nahi izan banitu bezala. Joxan Elosegi

Jesusek erantzun zion: - **Ageri-agerian** hitz egin izan diot nik mundu guztiari; sinagogetan eta tenpluan irakatsi izan dut beti, judu guztiak biltzen diren lekuan, eta ezer ere ez dut ezkutuan esan. Elizen arteko biblia

Izadia serioski aztertzen hasi garen honetan, **ageri-agerian** dugu auzien zabala eta haiei aurre egiteko geratzen zaigun bide luzea. Juan Garzia

3 *agerian gelditu*

Olio-mantxa bat daukazu zurian, eta **agerian gelditu** zaizu. Rafa Egiguren

Berari eta Europako hainbat kateari esker **agerian gelditu** ziren interbentzio askatzaile haren gordinkeriak. Txema Ramirez de la Piscina

Lokarria kenduta, zauria **agerian gelditu** zen: sakona zen, hiltzaileak ez zuen huts egin nahi izan. Migel Angel Mintegi

Lehen unetik **agerian gelditu** zen kimika ona zegoela hiruren artean. Eider Rodriguez

Iruditzen zait artzain horiek ez nautela salatuko, baina oker nago, bidean noala herria **agerian gelditu** zait han behean, eta halako batean bi auto ikusi ditut plazatik ateratzen, eta nire bila datozela pentsatu dut, eta halaxe da, ni nagoen aldera jo dute. Bernardo Atxaga

Administrazioz, elizaz eta bizimoduz, gainerako euskaldunengandik nahikoa bereiz ibili dira zuberotarrak, eta hizkuntzan ere **agerian gelditu** da urruntasunaren aztarna. Koldo Zuazo

12.Orain arte esandakoarekin **agerian gelditu** dira, pertsona natural askok, beldurrak eraginda, pertsona zibil bakarra osatzeko eman dituzten urratsak, eta haien forma. Esteban Antxustegi

Zauria **agerian gelditu** da: ezinbestekoa dugu argazkiaren estilo liburua. Iñigo Aranbarri

Horrela, mauka motzean, beso gaineko arrosa **agerian gelditu** zaio. Jokin Muñoz

Oroitzapen batek hartzen dio gogoa: lurrean zeutzala jertsea goratu eta haren bular txiki eder eta akatsgabeak **agerian gelditu** zirenekoa. Oskar Arana

4 *agerian geratu*

Marra fina izan behar da, oso **agerian geratu** ez baina nabari dadin. Sonia Gonzalez

Rosak bere ohe kidearen izena xuxurlatzen zuen behin eta berriro, "Miriam, Miriam... ", eta, oharkabean, tolestuz zihoan maindirea lurrera jausi eta bi emakumeen gorputz biluzi korapilatuak **agerian geratu** ziren. Aritz Gorrotxategi

Behera iritsi zenean, hesteak **agerian geratu** zen baldosa zuriaren gainean, zaindari-andreak erortzean harrotutako geranio-petaloekin nahasian. Jokin Muñoz

Azpikeria **agerian geratu** zenean, gerra abian zen eta hildakoak hamarna milaka kontatzen ziren. Txema Ramirez de la Piscina

Isaac Joseph Asscherren ausardia beste hainbat ekitalditan ere **agerian geratu** zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Halako batean, gorputza apur bat zutitu eta titiak **agerian geratu** ziren, zeharka. Lander Garro

Begirada basati batekin, puntuzko zapia erantzi zuen eta **agerian geratu** zitzaizkion berriro sorbalda arrosak eta beso mehe samurrak. Jose Morales

Kuleroak jazteko zutitu den istantean neskari **agerian geratu** zaizkio izter zuriak. Pello Lizarralde

Nire fanfarroikeria **agerian geratu** zen, ez bainion hitzik ere harrapatu. Edorta Jimenez

5 *agerian jarri*

Gauzak **agerian jartzea** beste erremediorik ez zegok. Bernardo Atxaga

Aurrerago baino ez zen sekretua **agerian jarri**. Karlos Zabala

Honek bai, honek bai jakin du bihotzeko misterioak **agerian jartzen**! Jose Morales

Ez zuen asko behar izan gorpuak erabat jiratu eta ur gainean ahozgoratzeko: orekarik batere gabeko pinu enbortzar bat bailitzan, ezkutuko aldea **jarri** zuen **agerian**. Hasier Etxeberria

Nire bizitza guztia **agerian jarri** nahi dizut, egiazkoa, ezagutu zintudan egunean bertan hasitakoa. Eduardo Matauko

Nahastu egin ote nintzen pasatu zitzaidan burutik, baina haren aurpegiko orbanak **agerian jartzen** zuen nor zen aurrean neukana. Anjel Lertxundi

Venus Express zundak aste honetan **agerian jarri** du planetaren alde ezezaguna. Biologia molekularrak **agerian jarri** zuen zelularen funtzionamendua gobernatzen duten sistema genetikoen eta oinarriko mekanismoen batasuna. Juan Garzia

Hala **jarri** da **agerian** badela gene mota bat organismoen forma zehazten jarduten duena. Juan Garzia

Halako mutanteak sortzeak **agerian jartzen** du mekanismoaren beste alderdi bat. Juan Garzia

Gona motzak **agerian jarritakoa** eta elastiko estuak nabarmendutakoa begiesten ari zelarik, ordu bietako kanpaiak aditu zituen. Migel Angel Mintegi

Ustekabeko arazoren bat **jar** dezake **agerian** simulazio horrek, eta, hala gertatzen bada, arazoa non den atzeman. Xabier Olarra

6 *agerian utzi*

Agerian utzi zidan hori duela egun batzuk kartzela honetan jaso nuen bere gutunak. Hasier Etxeberria

Berebat, proiektu horiek onura orokor, ohitura publiko, norbanakoen bozkario eta gauza guztien oraingo egoerarekin izan ditzaketen harremanak **agerian utzi** beharrekoak dira. Andres Urrutia

Gauza hauetan, jainkozko atseginak eta ikarak jotzen naute, pentsatuz zure indarrak gauzen izaera zein **agerian utzi** duen, alde guztietatik bistan. Xabier Amuriza

Besoa jaso zuenean, mahuka motzak besazpi koipetsua **agerian utzi** zuen. Juan Kruz Igerabide

Bihotz barnea **agerian utzi** arte biluziko du Sophie-ren aitzinean. Eneko Bidegain

Tropa nazionalen pasaeran, kale ertzetan jarrita, beren oniritzia **agerian utzi** nahi zieten herritar batzuek txaloka hartu zituzten. Jon Maia

Dilema honek **agerian utzi** ditu azken urteotan nahitaezko kontraesanak merkatu bateratze eta zatikatze politikoaren artean. Joseba Zulaika

Hezurrak alde batera boteaz, **agerian utzi** nituen eraikuntzako harria eta zementua. Koro Navarro

Agerian utzi berria zuen Ruche jaunak Elgar bere adiskide zaharrak jarria zion segada. Jon Muñoz

Aulki gainean zegoen egunkaria hartu du lotinantak, eskuetan darabil nire argazkiak **agerian utzi** dituela ohartu barik. Koldo Izagirre

Bere burua probatu nahi zukeen nolabait, bere gizontasuna **agerian utzi**. Irene Aldasoro

Kanpora herrestan eraman eta **agerian utzi** nuen, eliza bateko zimitorioan. Joxan Elosegi

Mugimendu bortitzaren eraginez, atorra zabaldu zitzaion eta ageri-**agerian utzi** zuen azal gardeneko bular samur arrosa bat. Jose Morales

Agerian utzi digute hori. Oskar Arana

7 *ipurdi agerian*

Neskame koitadua hankaz gora jausi zen, gona nahiko bildua zuela, eta ez baitzeraman azpikogonarik, **ipurdi agerian** geratu zen. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ageri agerian dago (3); **ageri agerian gelditu** (3); **ageri agerian utzi** (5); **ageri agerian uzten** (4); **agerian atxikitzen** (3); **agerian aurkitzen** (3); **agerian behintzat** (5); **agerian bizi** (4); **agerian da** (7); **agerian dauden** (4); **agerian dira** (3); **agerian ditu** (4); **agerian dituela** (4); **agerian duk** (3); **agerian dute** (3); **agerian egiten** (5); **agerian egon** (8); **agerian emaiten** (3); **agerian eman** (4); **agerian emanak** (7); **agerian esan** (3); **agerian ez jartzeko** (3); **agerian ezarri du** (4); **agerian ezartzen du** (3); **agerian geldi** (4); **agerian gelditu da** (44); **agerian gelditu dela** (7); **agerian gelditu dira** (6); **agerian gelditu direla** (3); **agerian gelditu ondoren** (4); **agerian gelditu zen** (41); **agerian gelditu ziren** (8); **agerian geldituko da** (9); **agerian geldituko dira** (4); **agerian geldituz gero** (3); **agerian gelditzea** (3); **agerian gelditzeko** (4); **agerian gelditzen ari** (11); **agerian gelditzen da** (12); **agerian gelditzen dira** (5); **agerian gelditzen zen** (3); **agerian gera** (8); **agerian geratu da** (53); **agerian geratu dela** (11); **agerian geratu den** (3); **agerian geratu dira** (11); **agerian geratu zela** (5); **agerian geratu zen** (53); **agerian geratu zirela** (3); **agerian geratu ziren** (18); **agerian geratu zitzaizkion** (4);

agerian geratuko da (9); agerian geratzeko (3); agerian geratzen ari (9); agerian geratzen da (21); agerian geratzen dira (6); agerian geratzen zen (6); agerian ikus (3); agerian ikusi (4); agerian ikusten (3); agerian ipiniz (4); agerian ipintzen (3); agerian izan (5); agerian jar (3); agerian jarri du (9); agerian jarri dute (7); agerian jarri nahi (8); agerian jarri zuen (11); agerian jarri zuten (6); agerian jarria (4); agerian jarriko (17); agerian jarrita (3); agerian jarriz (14); agerian jartzeko balio (4); agerian jartzen dituen (3); agerian jartzen du (28); agerian jartzen duen (5); agerian jartzen dute (7); agerian jartzen zituen (3); agerian jartzen zuen (6)

agerian laga (6); agerian utz (3); agerian utzi behar (7); agerian utzi ditu (15); agerian utzi dituela (3); agerian utzi dituzte (5); agerian utzi du (95); agerian utzi duela (9); agerian utzi duen (7); agerian utzi duenez (6); agerian utzi dugu (4); agerian utzi dute (39); agerian utzi dutela (4); agerian utzi duten (5); agerian utzi nahi (27); agerian utzi nahian (4); agerian utzi zituen (11); agerian utzi zuen (88); agerian utzi zuena (3); agerian utzi zuenez (3); agerian utzi zuten (34); agerian utziko du (5); agerian utzirik (13); agerian utzita (13); agerian utzitako (9); agerian uztea (18); agerian uzteaz gain (5); agerian uzten baitu (3); agerian uzten ditu (14); agerian uzten dituelako (3); agerian uzten dituen (6); agerian uzten dituzte (3); agerian uzten du (95); agerian uzten duela (17); agerian uzten duelako (3); agerian uzten duen (12); agerian uzten dute (57); agerian uzten duten (10); agerian uzten zituen (3); agerian uzten zizkion (3); agerian uzten zuen (14); agerian uztera (4); agerian uzteraino (4); agerian zegoen (17); agerian zen (6); agerian zeraman (4); agerian zeuden (8); agerian zeukan (5); agerian zeuzkan (5); agerian zituela (11); agerian zituen (9); agerian zituzten (4); agerian zuela (8); agerian zuen (12); agerian zuten (3); ahalmen atomikoa agerian (4); ahultasuna agerian (3); aldeak agerian (3); arazoa agerian (3); ari da agerian (3); arteko desadostasunak agerian (3); aski agerian (4); asmoa agerian utzi (3); asmoak agerian (5); atzo agerian (5); aurpegia agerian (11); aurpegiak agerian (3); aurrean agerian (6); aztarnak agerian (3)

baina agerian gelditu (3); baina agerian utzi (3); bakarrik agerian (3); balioa agerian (3); batean agerian (4); batek agerian (4); batez agerian (3); batzuek agerian (3); batzuk agerian (6); beharra agerian (9); berak agerian (4); bere burua agerian (4); berriek agerian (3); berriro agerian (5); berriro ere agerian (5); berriz agerian (4); berriz ere agerian (3); beste behin agerian (3); beti agerian (6); bezala agerian (4); biluzia agerian (3); borondatea agerian (3); borroka agerian (3); bularra agerian (6); bularrak agerian (4); dagoela agerian gelditu (3); dagoela agerian utzi (3); datu horiek agerian (3); datuek agerian uzten (3); daudela agerian (3); defentsak agerian (3); defizit demokratikoa agerian (3); dela agerian geratu (5); dela agerian utzi (5); dela agerian uzteko (7); den agerian (8); dena agerian geratuko (3); denen agerian (11); desadostasuna agerian (3); desberdintasunak agerian geratu (3); dira agerian (7); direla agerian (7); ditugu agerian (3); dituztela agerian utzi (4); du agerian uzten (3); du eta agerian (3); duela agerian geratu (3); duela agerian utzi (4); duen agerian (4); dugu agerian (4); dugula agerian (3); dutela agerian geratu (3)

edo agerian (3); emaitzek agerian utzi (3); emaitzek agerian uzten (3); erabakiak agerian (5); eraginkortasuna agerian (3); erakusketak agerian uzten (3); erdi agerian (5); ere ageri agerian (3); ere agerian gelditu (3); ere agerian geratu (10); ere agerian utzi (13); ere agerian uzten (7); ere edertasuna agerian (3); esker agerian (3); estua agerian (3); ez agerian (12); ez da agerian (3); ez du agerian (4); ez zuen agerian (5); eza agerian (10); ezberdintasuna agerian (3); ezjakintasuna agerian (5); ezkutuak agerian jartzen (3); falta agerian (7); gabeziak agerian (9); gaitasuna agerian (3); garrantzia agerian utzi (3); gauzak agerian (4); gelditu da agerian (5); gelditu zen agerian (13); gelditu ziren agerian (5); geratu da agerian (3); geratu zen agerian (6); geratzen da agerian (6); gertatu denak agerian (3); gezurrak agerian (3); guztia agerian (4); guztiak agerian uzten (3); guztiz agerian (4); hain agerian (7); handiak agerian (3); hankak agerian (3); hauteskundeetan agerian (3); honek agerian jartzen (3); honek agerian utzi (4); honek agerian uzten (8); honetan agerian (6); hori agerian gelditu (3); hori agerian geratu (4); hori agerian jartzea (3); hori agerian utzi (7); hori agerian uzteko (4); horiek agerian jartzen (3); horiek agerian uzten (11); horrek agerian jartzen (6); horrek agerian utzi (10); horrek agerian uzten (22); horrek guztiak agerian (3); horren agerian (4); horretan agerian (5); hortzak agerian (12)

ikerketak agerian utzi (3); ilargia agerian (3); inkestak agerian utzi (4); ipurdia agerian (9); irregulartasunak agerian (3); iruzurra agerian (4); izaera agerian (5); izan agerian (3); izanak agerian uzten (3); jarrera agerian uzten (3); jarrerak agerian (4); jartzen du agerian (5); kezka agerian (3); kontraesanak agerian (3); krisia agerian (4); lana agerian (3); maila agerian (6); miseriak agerian (3); nagusitasuna agerian utzi (5); nortasuna agerian (4); oinak agerian (3); oinarriak agerian (4); ondo agerian (6); ondorioak agerian (3); oraindik agerian (6); oso agerian uzten (4); osoa agerian (4); paparra agerian (3); partidak agerian utzi (3); partidetan agerian (4); politikaren porrota agerian (3); politikoa agerian (5); porrota agerian gelditu (3); sakona agerian (3); sekretua agerian (6); sekretuak agerian (3); sendotasuna agerian (3); sorbaldak agerian (4); txarrak agerian (3); txostenak agerian utzi (4); urduritasuna agerian (4); ustelkeria agerian (5); utzi ditu agerian (3); utzi dituzte agerian (4); utzi du agerian (12); utzi dute agerian (3); utzi zituen agerian (5); utzi zuen agerian (16); utzi zuten agerian (4); uzten ditu agerian (3); uzten dituzte agerian (3); uzten du agerian (18); uzten dute agerian (8); uzten zituen agerian (3); uzten zuten agerian (3); zati bat agerian (3); zegoela agerian (3); zegoen agerian (3); zela agerian (6); zeuden agerian (3); zirela agerian (4); zituztela agerian (4); zuela agerian (7); zutela agerian (4)

---

agerigabe *iz* ageri ez dena.

Ezinezkoa da asmatzea zer pentsatu zuen edo zer egin zuen hogeita hamar urte bete zituen arte, zein izan ziren haren jainkotasun artean **agerigabearen** sintomak, nola etsiarazi zion bere buruari errege izateko sortua zela. Juan Garzia

---

agerika *(corpusean ez dago; ETCn 7 agerraldi)* **1** *adlag* agerian.

Usainak, lurrunak, ñir-ñirka bezala nahi ditu, **agerika** eta gordeka aldi berean, sotil, arin, susmo bat ozta-ozta, lurraren edo itsasoaren oroigarri subliminala, Ferran Adriari behin aditu eta inoiz ahantzi ez zaion hitzaz adierazita. ETC-literatura, saiakera

-Herri Frontea, **agerika** zein ezkutuka, babesten duen orok fusilatua behar du izan. ETC-literatura, saiakera

Hainbestenarekilan eta hogoi urteko neskatila gazte bat, gona laburrak eta behaztopatuik eta belauniko erortzen da hor, ipurdia, kulotak xuri-xuriak **agerika**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Neskatila polit bat ikusi nuen ohean, izter krema-kolore bat parpaila beltzetan **agerika**, eta harrituxerik begiratu zidan. ETC-literatura, saiakera

2 *gorde-agerika* *adlag* gordetzen eta agertzen.

Egunsentia leihoaz bestaldean, baso esnatzen hasia, milaka txoriren kantu ozenak, zirrimarra argitsu baten antzera ihi mehen artean **gorde-agerika** doan errekatxo dizdizaria, bainatzera inguraturiko ume biluziz beterik. Jose Morales

---

ageriki *adlag* era agerian, agerian.

Adolphe Pictet-ek [...] nahiz **ageriki** onartu bazegoela herri primitibo bere hizkuntzaz hitz egiten zuena, halere etsi-etsia dago sanskritora jo beharra dagoela, lehenik eta behin, hizkuntza argibide bila. Isabel Arrigain

Uste dut Weinberg-ek aditzera eman nahi zidala bere amak nahiago zituela emakumeak gizonak baino, eta Weimar-ko Errepublikaren urte nahasietan nahiko **ageriki** eta nabarmenkeriaz erakutsi izango zuela zaletasun hori. Oskar Arana

Lan gogorrak ziren, abstrakzio **ageriki** arrazionalak, eta ez batere saltzen ziren ez aipamen positiborik eragiten zuten. Oskar Arana

Nola ez baitit jakin gabe utzi zuk ere baduzula haren zorigaitz guztien berri, **ageriki** mintza ahal natzaizu haren egoera tristeaz. Jon Muñoz

---

ageriko**1** izlag/izond agerian dagoena.

Ageriko gauza da orobat gorputzaren grabitatea, eta kanporatutako ur bolumenarena, oso estu orekatuak daudela. Koro Navarro

Ageriko logikarik gabe. Anjel Lertxundi

Gai kosmikoetan ezkutaturik daude **ageriko** bizitza korporalera jaiotzen diren gauza guztien hazi gisakoak. Imanol Unzurrunzaga

Zeren, nola lurraz estalitako urak **ageriko** bidea aurkitzen duen han edo hemen, halatsu gertatzen baita gure konplexuekin, haiek ere azalera egiten baitute Gizonek, normalean, **ageriko** tiraniaren aurka hormarik sendoenak jartzen dituzte, baina ez dute ikusten zomorro nimiñoa, poliki-poliki horma janez, ibai itotzaileari bide isila bezain segurua zabaltzen diona. Joan Mari Irigoien

Erlazioak aurkitzea **ageriko** loturarik ez duten informazio zatien artean. Juan Garzia

Ageriko sintoma gutxi dituzten gaixotasun kroniko asko daude eta haietako askoren ondorioa izaten da erekzioaren disfuntzioa batzuetan. Berria - Gaiak

Ageriko zentzu batek, mundu guztiak ulertzen duena zailtasunik gabe, bigarren bat ezkuta dezakeela, esoterikoa edo profetikoa, argitze lan burutsu batek edo denboraren higadurak agerraraz dezakeena. Xabier Arregi

Alaitasun bizi batek piztu zuen, jaiki zen, eseri zen berriro, ni bere beso artean estutzeko **ageriko** gogo batez. Josu Zabaleta

Barneko bekatua dela bekatuaren egin nahi izatea eta **ageriko** bekatua dela bekatuaren orain egitea, eta horrela, nahiz **ageriko** ekintzan badiren gauza berenaz bereiziak, guztiak moral beraren menpean daude. Piarres Xarriton

CIAko zerbitzu sekretuak ez ziren **"ageriko** zantzuez konturatu". Berria - Mundua

Ageriko joko kontzeptual honen ostean jarri behar du batek bere burua. Xabier Arregi

Partida herrenka bukatu zuen, **ageriko** min keinuak eginez. Berria - Kirola

Ezin izan zituen erabat ezkutatu, bere hurbileko lagunentzat bederen **ageriko** gertatu gabe. Askoren artean

Adierazpenaren kontzeptuaz gaur egun nagusi diren definizio guztiek nabarmenarazten dute, lehen ere esan dugun bezala, formaren lanaren halako autonomizatzeko joera **ageriko** bat, gehiegizkoa askotan. Josu Zabaleta

Horrelako gauza **ageriko** bat ez du berak ukatuko. Hasier Etxeberria

Ez dago gizon argiturik, segurtasun komunaren hitzarmen **ageriko**, argi eta egokiak maite ez dituenik. Juan Martin Elexpuru

Haren beso biluziek, haren lepo biluziak, haren **ageriko** azal biluzi arrosa guztiak mertxikaren eta gereziaren freskura zuten. Karlos Zabala

Ez zuen deabruak gizakia harrapatuko bekatu hain **ageriko** eta nabarian, Jaungoikoak debekatutakoa egiten alegia, lehendik bere buruari atsegin ematen hasia ez balitz. Imanol Unzurrunzaga

Gramatiken eredua modu orokor eta guztiz **ageriko** batean azaldu behar dugu, era horretakoak diren hizkuntzen gramatikak proposatu ahal izateko. Itziar Laka

Amonak **ageriko** gogo txarrez esaten zigun sartzeko. Juan Garzia

Jendeak barra-barra aipatzen zuen Biltzarra, zeinek ageri- **ageriko** burlaizez, zeinek ahotsa apalduz, zeinek larridura nahiz jakinminez; denek ere, ustez, ezjakintasunez. Juan Garzia

Ageriko nahiz ezkutuko etsaien eskura. Askoren artean

Lapurra lapurtutakoa ezkutalekura eraman baino lehen harrapatzen zutenean, horri **ageriko** lapurreta deitzen zioten erromatarrek; geroago harrapatzen zutenean, ez- **ageriko** lapurreta zen hura. Iñaki Iñurrieta

Xose Manuel Beiras buruzagi historikoaren ondorengo alderdiaren **ageriko** beste aurpegi bat. Berria - Harian

Emakume begi **ageriko** haien atzetik, txerpolariak; batzuek ahoan sua, eta beste batzuek, ezpata okerra sartzen zutenak. Felipe Juaristi

Harengandik hala urrundurik, irabazten dut gutun bidezko harreman **ageriko** bat hastea harekin, eta haren borondatez. Jon Muñoz

Bekatua agerikoa denean, esate baterako, emagaldu **ageriko** batena eta auzi baten ondoko epaiarena edo tratatzen dituen pertsonak kutsatzen dituen oker **ageriko** batena. Patxi Altuna

Bizio **ageriko** guziak arinak dira; kaltegarriak berriz hagitz, ontasun itxura baten pean gordetzen direnak. Patziku Perurena

Hain **ageriko** izatearen izateaz, esan beharrik ere ez daukana. Hasier Etxeberria

Sufrikario luzeak, sastakaiaren zauria, haginkada pozoitsua, penak eta beldurrak eta aire **ageriko** ibilaldi luzeak zirela medio, Frodo ahiturik zegoen. aipatu erlazio horiek ez dira ez horren sinpleak ezta horren linealak eta **agerikoak** ere. planteamendua sinplista bezain **agerikoa** izatean datza bere indarra. Agustin Otsoa

Ageriko zen dena, ezkutuko bihurtu zen. Iñaki Iñurrieta

2 *ageri-ageriko*

Hiruzpalau bisita egin zizkien Vueltako medikuei, baina etapa bukaeran **ageri-agerikoak** ziren muturrekoaren ondorioak Berria - Kirola

Ageri-agerikoa da Ander Gurrutxaga Soziologia katedraduna dela Berria - Euskal Herria

Ageri-agerikoa zen ez nengoela nonahi. Joxan Elosegi

-Eragina **ageri-agerikoa** da, jakina. Koro Navarro

"Zer egin gizon hauekin? Izan ere, **ageri-ageriko** miraria egin dute: ongi daki hori Jerusalem osoak, eta ezin dugu ukatu. Elizen arteko biblia

3 *ageriko gordailu* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Gordailu Hitzartuen (bukaerako eta **ageriko gordailuak**, bankuarteko eta Estatu batuetako Gobernuaren gordailuez bestelakoak, biltze-prozesuko diru-sailak izan ezik) Totalaren kontuak eta Bankuetatik Kanpoko Diruarena diren bezala, aurtengo urteko apirilean, 174 bilioitara iristen ziren (55,170 1929ko ekainean eta 60,900 1939ko ekainean). ETC-literatura, saiakera

Bestetik, beste batzuen **ageriko gordailuak** onartzen ziren, interes finkoz ordainduak (sopracorpo delakoa); biek osatzen zuten kapital soziala. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontu korrontea, ageriko kontua edo **ageriko gordailua** banku-kontu mota bat da, finantza erakunde batean (izan mailegu kooperatiba, banku edo, garai bateko aurrezki kutxa) bezero batek duen diru-gordailu mota bat. ETC-entziklopedia

4 *ageriko jokaldi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Jokaldi handia eta garrantzitsua da denentzat, baina, batez ere, oso **ageriko jokaldia** da, begi bistakoegia. ETC-prentsa

5 *ageriko kontu*

Aldaketaren ondoren, Ipar Euskal Herriko bankuetako **ageriko kontuen** truke interesak jasoko dituzte herritarrek, Europako gainontzeko herrialdeetan bezalaxe. Berria - Ekonomia

Bai, badakit Madrilekoena ere, haien ankerkeriak eta ibilerak ezagunak zaizkit, baina ez nauzu hemen ariko **ageriko kontuekin**. Hasier Etxeberria

6 *ageriko kopia* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Cc **ageriko kopia** edo bigarren mailako hartzaileak. ETC-entziklopedia

7 *ageriko magnitude* *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Tempel 1 ez da kometa dizdiratsua: bere gehienezko **ageriko magnitude** edo itxurazko magnitudea, oraingoz, 11koa izan da, begi hutsez ikusi ahal izatekoa baino baxuagoa. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ageri ageriko (3); **ageriko arrazoirik gabe** (10); **ageriko bat** (3); **ageriko bilkura** (4); **ageriko bilkuran** (3); **ageriko den** (3); **ageriko dira** (9); **ageriko erlijio ikurrak** (3); **ageriko gauza** (4); **ageriko gauzak nola** (3); **ageriko lapurra** (3); **ageriko loturarik ez** (3); **ageriko nahiz ezkutuko** (3); **ageriko nola** (5); **ageriko nor** (3); **ageriko obra** (3); **ageriko zen** (3); **ageriko zer** (6); **ez ageriko** (3); **ez da ageriko** (3); **fresko ageriko da** (3); **hain ageriko** (5); **hori gero ageriko** (4); **igandean ageriko** (5); **laster ageriko** (3); **nahiz ageriko** (4); **ondoko egunetan ageriko** (6); **ondoko hilabetetan ageriko** (4)

ageri agerikoa da (3); **agerikoa bada ere** (3); **agerikoa baitzen** (5); **agerikoa bazen** (3); **agerikoa da euskal** (3); **agerikoa da ez** (4); **agerikoa dela** (10); **agerikoa den** (9); **agerikoa dena** (4); **agerikoa denez** (5); **agerikoa egin** (5); **agerikoa ere** (3); **agerikoa ez** (8); **agerikoa gertatu** (3); **agerikoa izan zen** (4); **agerikoa zela** (4); **agerikoa zen** (47); **baina agerikoa da** (5); **beti agerikoa** (4); **bezain agerikoa** (3); **dela agerikoa** (3); **eragina agerikoa** (3); **ere agerikoa da** (4); **ez agerikoa** (5); **guztiz agerikoa** (3); **hain agerikoa** (6); **hori agerikoa da** (6); **oso agerikoa da** (6)

baino agerikoagoa (4); **gero eta agerikoagoa** (3)

ageri agerikoak (3); **agerikoak baino** (3); **agerikoak dira** (18); **agerikoak direla** (4); **agerikoak diren** (3); **agerikoak ez diren** (3); **agerikoak izan** (4); **agerikoak ziren** (5); **ere agerikoak** (3)

agerikorik gabe (5)

---

agerikoki *adlag* era agerian, agerian.

Kantu berrien elementu elektronikoak ez dira hain **agerikoki** elektronikoak (horrek zentzurik badu!). Berria - Kultura

---

agerikotasun *iz* agerikoa denaren nolakotasuna.

Agerikotasuna bi eratara neur daiteke: euskal literaturaren historian lortutako lekuagatik edota edozein literatur ekintza egin behar delarik ere, antolatzailearen burmuinean duzun lekuaren arabera. Ana Urkiza

Emakumeak erreparoa dio **agerikotasunari**, zeren eta ikusi beharrik ez dago zer nolako prezioa ordaindu behar duen **agerikotasun** horrengatik. Ana Urkiza

---

agerinde *iz* agerpena.

Agerinde suntsigarria. Itxaro Borda

Dolorezko **agerinde**. Itxaro Borda

Haatik, **agerinde** apokaliptikoen partez, emazte ezezagunaren begirada kasik ahantziaren barnetasunak inguruaren lo sapa amnesiakoa kilikatu zuen. Itxaro Borda

Kaskoko pantailan **agerindea** garbiki zehazten nuen eta psikologo anderea, zugan konfiantza osoa dudalako, ene begiez miresten nuen bezala kontatuko dizut. Itxaro Borda

---

agerira *adlag* begien aurrera.

Mendian besterik da, haitzak, lurraren hezurrak baitira, **agerira** datoz, hotsa ateratzen dute oinetako burdineztatuen azpian. Juan Garzia

-Eta indar hori noiz irtengo da **agerira**? Joanes Urkixo

Anne biguna gutxitan azaltzen da **agerira**, eta nekez baizik ez da uxatzen. Josu Zabaleta

Irudi mugikorrean, berriz, eremuz kanpo dagoena beti azal daiteke **agerira**, dela koadratzea mugituz dela beste irudi batekin kateatuz. Josu Zabaleta

2 *agerira atera*

Eskuak dardaraka ekin zion emakumearen sekretuak **agerira ateratzeari**. Migel Angel Mintegi

Bertako inor ez zen agur haren lekuko izan, babeslekuetan ezkutatu baitziren beldurrez, eta ez ziren **agerira atera** eguzkia irten eta atzerritar ausart haiek Santutegitik alde egin arte. Agustin Otsoa

Baina **agerira atera** zituzten kontuak tamalgarriak izan ziren eta amore eman zuen. Anton Garikano

Bizikletan ibili, dantza egin, ziztu egin, munduari begiratu, gazte sentitu, gazte naizela jakin, horixe nahi dut nik, baina ezin dut hori **agerira ateratzen** utzi, zeren pentsa ezazu denok erostaka hasiko bagina edo bekozko ilunak jarriko bagenitu... Josu Zabaleta

Oroitzapen mingarriak **agerira atera** eta Fionni pena handia emateko arriskuan egon zen, mutila iragana gainditzen hastekotan zegoen unean. Joanes Urkixo

Horixe da Unamuno-k beti egiten duena, horrela **agerira ateratzen** zaiola ezkutuko bere egiazko motibazioa. Joxe Azurmendi

Ilargia elurhodei hartatik **agerira atera** zen eta gau izoztuan zelaiko soroek distira egiten zuten eta berriz hormakristaltxo haien guztien ttiki-ttaka aditu nuen, horietako bakoitzaren barrenean segundo orratz koloretsua mugituko balitz bezala. Fernando Rey

3 *agerira azaldu*

Gerra bat irabazten duenak erabakitzen duela nor den biktima eta nor borrero esaten nuen han, horregatik bihurtu zela kontu hori gatazkaren muina, eta komeni zela, justizian oinarrituriko bake bat lortzekotan, estatuaren biktimak ere **agerira azaltzea**. Agurtzane Juanena

Saski baten ondoan, kandela piztu batek kolorezko kanta zoli bat hedatzen zuen inguru beltz hartan, bitxiloreen orban zuri biziak, dalien gorri odolkara, bioleten urdintasuna, arrosen mami bizidunak **agerira azalduz**. Karlos Zabala

Egia maiz mingarri, **agerira azaltzen** denean batez ere. Gotzon Garate

4 *agerira ekarri*

Egitate makur eta ezlegezko hauetatik azken agerpidea Castelaren abokatu Eric Dupond-Morettik zuen **agerira ekarri**, herenegun gertatutako epaiketa saioan. Berria - Mundua

Sabino Aranarekiko desadostasuna **agerira ekarri** zuten alderdikide batzuek. Koldo Zuazo

Piztia ezkutua **agerira ekartzeko** adorea aurkitu zuen, nolabait esatearren, eta behin egindakoan, beharbada ez zen harentzat hain zaila bigarrenez ere egitea. Oskar Arana

Esan eta egin; Martinek berak lagundurik ekin nion liburu bakarrean bi ziren haren kanpoko azala bere lehengora ekartzeari, hots, labanaz **agerira ekarri** zuen bigarren kanpo-azala eta beste barru-azala bat egiteari. Edorta Jimenez

Liburuetan ezagunena, hala ere, Negarra du, hogei bat hizkuntzatara itzulitako liburua, Txernobil osteko mundua kontatzen duena, agintariek egia ezkutatzen saiatuagatik Svetlana Aleksievitxek **agerira ekarri** zuena. Berria - Kultura

[...] Tudelak, Alba gabe gelditu ondoren, hirugarren izen aldaketa erabaki zuen, hirugarren bizialdiari ekin zion, aurreko biak ahaztu nahirik, baina ez zuela lortuko jakiteke, aurreko bizialdiak ur-korronteak baitira edonorentzat, bizitzako itsas azpitik tiraka ari direnak, batera edo bestera, batzuetan azpikoa **agerira ekarriz**, eta besteetan agerikoa azpira eramanez. Felipe Juaristi

[...], eta haren kide-kideko gaztez eta izamoldez, onar dezazuen hemen gure gortean geratzea denbora apur batez; hala, zuen lagunarteak atseginbideetara ekarri, eta atzeman dezagun ea, egokierak hartarako modua ematen dizueno, badenentz deus, gure ezkutuan, hala joa duenik, eta, **agerira ekarririk**, gure esku dagoenik konpontzea. Juan Garzia

---

ageriratu, agerira(tu), ageriratzen da/du *ad* agerira etorri, agerira ekarri.

Ezaugarri hau berehala **ageriratzen** da hots-adierazleen elementuak idazkeraren bidez adierazten ditugunean. Isabel Arrigain

Ildo horretatik, euskarazko itzulpenean ere, pasarte askotan, estilo "trakets" hori **ageriratzen** da. Isabel Arrigain

Ilusioak alde batera utzi nahi baditugu, lehenik, etsi-etsiak egon behar dugu ez zaizkigula berez **ageriratuko** hizkuntzaren entitate konkretuak. Isabel Arrigain

Galdera hauek -oraingoz **ageriratu** bakarrik egingo ditugunak-, aurrerago izango dute erantzuna. zatiketa hau izango da, hain zuzen, hizkuntzalaritza sinkronikoaren ohiko eskemetan aldatu behar dena **ageriratuko** duen bakarra. Isabel Arrigain

Azkeneko bi termino horiek badute abantaila, zeren **ageriratzen** baitute aurkakotasuna, haien artekoa edo biek osotasunarekiko dutena. Isabel Arrigain

---

ageriro *adlag* ageriki.

Berari zuzenean eraso ziotenean esaterako, Time aldizkariko berriemaile batek "zein izan da irailaren 11ren ondoren egin duzun akatsik larriena?" galdetu zionean segurtasun oro galdu zuen Bushek **ageriro** eta totelka hasi zen. Lopez de Arana

---

ageriz *adlag* ageriki.

Ehortzi nahi izan zuen orduan, estepan **ageriz** egon ez zedin, eta Nikolas bizirik lurperatzeko egindako zulo hura bera zabaldu eta handitu egin zuen hilik etzanda jartzeko! Karlos Zabala

Eta harritzen ninduten, halaber, haien begiek... zeinak kale-kantoi batetik bertzerat baitzebilzkien, saguzar kapadunen joan-jinak ere galdu nahi ez balituzte bezala, zeren negozio hartan tratuak eta sal-erosiak berdin eta orobat egin baitzitezkeen **ageriz** nola kapapetik. Joan Mari Irigoien

---

agerizko *izlag* agerikoa.

Anuntxi Arana-k aipatuko dauzkigu ihauteriak, horien gordezko edo **agerizko** erran nahiak, sinboloak eta interpretazioa. Herria

Lorpen honen ageri-**agerizko** lekukoa da, Muskildi eta Urdiñarbe herrien arteko errepide nagusiaren bazterrean altxatu egin den eraikin dotorea. Berria - Ekonomia

Basoarte amaigabea, zarratua, tarteka indiar txabola multzo bat edo beste, erro **agerizko** zuhaitzen pean ostendurik. Joxe Austin Arrieta

---

agerka ik **agerika**.

---

agerkai *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)* **1** *iz* agiria.

Joan zen urtean, argitalpen batzordean erabaki genuen Euskonews **agerkai** digitalaren 10. urteurrena ospatu behar genuela. ETC-prentsa

Hala ere, beste inori eskuorde dakioke haren formalizazioa, baldin eta ahalordearen **agerkai** egokian jasotzen bada borondatearen eduki nagusia. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 *iz* erakusgarria, froga.

Samurtu zaizkit nire ideia tinkoak; daukaguna ez ote den garenaren erakusgarri, galdetu diot neure buruari, egindako bidearen eta egiteke dugunaren **agerkai**. ETC-prentsa

Gerraren dimentsio internazionala ere islatzen du Basarrik, hala nola aliatuen laguntza (falta) edo faxismoaren indarra: "Faszismoaren apan eta **agerkai** guzia guda da", dio 36ko apirilean. ETC-prentsa

---

agerkari **1** *iz* aldizkaria, eskuarki erakunde batena.

Gure Almanaka, Baionako **agerkaritik** ateraia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hola zuten "Aintzina" **agerkaria** moldatu; denbora hartakoak ditugu Mixel Labeguerie, Piarres Charritton, Ernest Bidegain eta besterik. *Iker* taldeak aurkeztu dauku Lapurdum **agerkariaren** 9. zenbakia. Herria

Mitxelenak berak idatzi zuen *Euskera* **agerkarian** (1978), Xenpelar bertsolariak ere lagunarteko *dut, zen, zabillen* adizki nafarren ordez, *det, zan, zebillen* giputzak erabiltzen zituela bertsotan zihardueneanean, hau da, hizkera jasoan mintzo zenean. Koldo Zuazo

Teoria oralistari oro har darion biblia-kutsu horretaz gainera, gogoan har bedi ahozko literaturaren molde askotako **agerkariak** ikertzeko erabili dela, eta maiz askitan ez dela **agerkari** horietako bakoitzaren izaera berezia gogoan hartu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Herri literaturaren kutxan sartzen diren genero eta **agerkarien** artean denetik dago. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eskuetan *Voici Paris* eta *Nous Aussi* **agerkarien** ale batzuk zeuzkala azaldu zen, eta Yvanen eta bion argazkiak, lehen planoan eginak guztiak, pantailaratu zituzten. Joxan Elosegi

Nahi genituzke ixtorio horietarik zenbait agertu hemen, "Cuadernos de etnología de Navarra" **agerkaritik** hartuak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Jean Paul Loubes idazleburuak erran duenaz, **agerkari** hau hizkuntz guttitueri ere idekia da, horietan euskarari. Herria

2 agerpena, agerraldia.

Gaztea zarenean jeloskeria izaten da maiz amodioaren lehen **agerkaria**. Matías Múgica

Ezohiko **agerkari** hau, desgaraian eta bakardade hartan, bera aski zen Santxoren barrena izu-izu jartzeko, eta baita bere nagusiarena ere; izutuko zen beharbada Don Kijote, baina Santxo erabat jauzia zegoen bere kemen eta guzti. Patxi Ezkiaga

Haien basakeria, harrotasuna, portaera, izaera gartsua, lasaitasuna, gorputzaren diziplina, beren mugimenduei buruzko kontzientzia, haien jolasak eta begien etengabeko distira, den-dena antzinako nobletasunaren **agerkari** duk haiengan, arbasoen nobletasunaren antzekoa, gizakia, hasierako kaosean, kreazioan zuen lekuaz jabetu zen garaikoa. Xabier Olarra

Zale duzu guztiz eldarnioa halako **agerkari** mamigabeak irudikarazten. Juan Garzia

Bennettek zuen sindromearen beste **agerkari** bat -oso bestelakoa, bat-bateko ukitu-behar inpultsibo eta konpultsiboaren aldean- honako bitxikeria hau da: bere inguruan oinaz geldiro eta ia sentsualki zapaltzen zuen lurra, marra biribil bat markatzeko. Xabier Olarra

Enperadorearen adeitasun-**agerkari** berezi bat zen guardia hungariarraren emazte frantsesarekin txantxetan aritzea. Xabier Olarra

Ez nuke bukatu nahi, naturaltasun guztiarekin norbere sena (jeneralean norbere kontzientzia edo kultura besterik izaten ez dena) sen moral zuzen eta jatortzat hartzea, tradizio "ilustratu" enetzat oso sasi-ilustratu bateko **agerkari** susmagarria iruditzen zaidala, gehitu gabe. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **agerkari bat** (3); **agerkari digitalak** (3); **beste agerkari** (4); **eta agerkariak** (3); **euskera agerkarian** (7)

---

agerkera *iz* agertzeko era.

Lurraren beste **agerkera** gezurrezko bat da "gure bazterrak" dei genezakeena, hots: aurkintza, parajea, paisajea, argazkia; sasoi bateko paisajistek ikusi uste zuten natura-puska apaingarri huts bihurtua. Iñaki Segurola

---

agerketa *iz* agertzea. ik **agerpen**.

Milaka otsoren **agerketa**, goseak ordokira bultzaturik. Karlos Zabala

Rafael, halaber, "nahimen gotikoaren" **agerketa** da. Joxe Azurmendi

Ortega-ren suposizioan, Cervantes den estiloa, Espainia den estiloaren **agerketa** distiratsu bat da. Joxe Azurmendi

"El Cuartel Real"en **agerketa** berehala abiatuko zelakoan, moldiztegitxo garraiagarri horietako bat eskaini zidan Cristóbal Pérez zuzendari teknikoak, Zugarramurdiko gotorlekura propio bidalia; eta artikuluak prestatzeko agindu zidan egunkariko zuzendari orokorra izendatu zuten Valentín Gómez delako batek. Txillardegi

Calder: *Grabitatea eta grazia* **agerketak** ere jakinmin handia sortu zuen, eta 582.799 lagun erakarri zituen museora. Berria - Kultura

---

agerki *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)* **1** *iz* seinalea.

Konpainiak" CO2 isuriak erregula" ditzaten eskatu die potentzia nagusiei," klima aldaketa gelditzeko eta heldu diren belaunaldiak kontrolatzeko zail diren **agerkietan** bizi ez daitezen". ETC-prentsa

Zuregana nator, Enriqueta maitia, gure etxean, Araba lurraldean, Espainiako batasun sakrosantuaren ikur zarelako, inperioaren ispilu, gesta militarren **agerki**, hobenik ez duen historiaren irudi. ETC-prentsa

Agerkiaren parean, berriz, deskantsatzeko sofak eta garagardoz, urez eta freskagarriz leporaino betetako hozkailua dute. ETC-prentsa

2 *iz* agerkaria.

"ETAren alde politikoan" egotea eta Zutabe **agerkiaz** arduratzea egotzi dio Espainiako Barne Ministerioak, prentsa ohar baten bidez. ETC-prentsa

---

agerkizun *iz* ikuskizuna.

Dena **agerkizun** hutsa izan balitz bezala. Jose Morales

Gérard Desarthe-k Hamleten lekua du Shakespeareren antzerki-lan horretaz Patrice Chéreau-k egin duen eszenaratzean; horrek ez du esan nahi -bistan da- Hamlet denik, oso bestela baizik: nik pentsa dezakedala, alegia, **agerkizun** horretarako zehazki izendatuta dagoen leku batean -eta oso modu erritualizatuan, gainera- Desarthe-k, bere ahotsaren, bere gorputzaren, bere keinuen eta bere hitzen bidez alegiazko pertsona batentzat har daitezkeen egiteak eta kezkak adierazten eta ulerrarazten dizkidala. Josu Zabaleta

---

agerkor *izond* **

Azken honentzat, Schopenhauer-entzat bezala, fenomenoetako mundua (**agerkorra**) irudipena baizik ez da, egia-egiazkoa barnagoko agertezina izaki. Joxe Azurmendi

---

agerkun *iz* **

Euskaraz ere *gaitza, gaixoa, eta gaiztoa, gaizki,* etab. denek familia berekoak dirudite (*ekaitz* eta, ez dakit; edo *txarra/zaharra,* etab.), interesgarria bailitzateke, zenbat **agerkun** berez fisiko edo organiko, balio moralean erabiltzen den ikertzea gure hizkuntzan ere: *bihurri, makur, txar, ziztrin, harro-apal,* etab., Joxe Azurmendi

---

agerkunde **1** *iz* Jainkoak naturaz gaindiko bidez gizakiei ezkutuko egiak ezagutaraztea; egia horiek berak.

KRISTO GURE JAUNAREN BERPIZTEA ETA LEHENENGO **AGERKUNDEA** . Patxi Altuna

Razionalismoaren aurka altxatu zen, eta Jainkoaren **agerkundea** ere bere lekuan jarri zuen. Askoren artean

Santo Tomas sinesgaitzak, aurreko **agerkundean** ez baitzegoen beste lagunekin, esaten du: "Ikusten ez badut, ez dut sinetsiko". lehentxeago ikaraz eta beldurrez betea zegoen tenplua, Jaun ahalguztidunaren **agerkundearen** ondoren, bozkarioz eta alaitasunez bete zen.Gauzak horrela, uler daiteke zergatik Erdi Aroan filosofatzen dutenek behintzat irekita egon behar duten Kristautasunak sinesten duen Jainkoaren goi-**agerkundeari** , horrek Jesukristorengan bere betekizuna lortu duelakoan. Patxi Altuna

· Lehenbizi asmatu eta bataiatu, eta gero badirela sinesten duenaren begiak aurkitu eta ezagutu egiten ditu, eta hori dena ganbarako burmuinak bixigarriren batekin argitu edo mozkortu gabe gainera, gizon serioen lantegia baita hori, eta ez Ama Birjinaren **agerkundeak** bezalakoa, edo, hobeki esanda, Ama Birjinaren **agerkundeak** bezalakoxea da, baina eguneraturik, egunekoturik. Iñaki Segurola

Horregatik igortzen dizkigu Jaungoikoak bere **agerkundeak** , gure desterruko premiak asetzeko; ohartarazi nahi baitigu hemen ez dagoela bila gabiltzan hori; jatorrizko abiapuntura itzuli behar dugula horien bila; gauza horiek ez baikenituzke hemen bilatuko handik ez bagentoz. Imanol Unzurrunzaga

Ez zen han gertatu ez **agerkunde** mistikorik, ez goialdeetako estasirik. Xabier Olarra

· Ni, ordea, **agerkunde** bat izan banu bezala nengoen, ez nintzen gogoratu ere egiten lagunekin gelditua nengoela zinera joateko. Anjel Lertxundi

2 irud/hed.

Arraza espainolaren arimaren **agerkunde** jator eta modernoa, h[au] d[a], izpirituarena, Cervantes da. Joxe Azurmendi

Gardentasunean oinarritzen den estilo "klasikoaren" sorrera, eta baita zinema ahostunaren **agerkundea** , kolorezkoarena, pantaila zabalarena ere hartzen dituen historia horren kariaz sailka dezakete hirurogeita hamarreko hamarraldiaren hasierako kritikari horiek zinema "ideologia burgesaren erabateko morroi" gisa. Josu Zabaleta

Han gertatzen zen guztiari antzematen zion azkenean, leihoan isilik sortzen ziren beso eta buru haien bat-bateko **agerkundeei** esker. Karlos Zabala

3 ***goi agerkunde***

Kristautasunak sinesten duen Jainkoaren **goi** -agerkundeari. Horretarako erabili izan den filosofiak hasieratik toki bat gordetzen dio **goiagerkundeari** eta horrek gizakiarengan sorrarazten duen fedearen erantzunari. Askoren artean

Kant du gogoan, baina polemikoagoa da **"goi-agerkundeari** zor fedea", bera berriz, "agerkunde filosofikoa" deritzanaren alde ageri da. Askoren artean

---

agerkuntza *iz* agerkundea, Jainkoak naturaz gaindiko bidez gizonei egia ezkutuak ezagutaraztea.

Teologiaz jatorrizko zerizanaren ezagutza ulertzen badut, orduan hau edo arrazoimen hutsetikoa (theologia rationalis) edo **agerkuntzatikoa** da (theologia revelata). Ibon Uribarri

---

agerleku *(ETCn **22** agerraldi; cf **agertoki** **8.065** agerraldi) iz* agertokia.

Garapen horiek, teknologi mirari horien **agerleku** izandako gizartearen azken batasuna iragartzen zuten politika-mailan. Iñaki Mendiguren

Lyotardek (1970) hizkuntzaren lehentasuna eraisteko gerra-makina bezala hartzen du figuraren kontzeptua, eta, horrela, desiraren, primariotasunaren (Freuden zentzuan) **agerleku** bezala hartzen du figura. Josu Zabaleta

Hudson ibaiari buruzko aipamenak ere sarri egiten ditu Dos Passosek: beti langar eta ketan; denetariko itsasontzien desfile amaigabeen **agerlekua** ; gerratik datozenek, justiziatik ihesi dabiltzanek, langileek, deportatuek, trafikatzaileek eta abarrek igaro beharreko atea. Lopez de Arana

Garapen horiek, teknologi mirari horien **agerleku** izandako gizartearen azken batasuna iragartzen zuten politika-mailan. Iñaki Mendiguren

---

agermen *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* agerraldia, agerpena. ik **agerkunde**; **aparizio**.

Honela esan dit: "Har ezazu **agermenaren** edabea", eta edan egin dut. ETC-literatura, saiakera

Sargori hartan, ihesari ekin behar zion unean, eskua jaso eta geldiarazi egin zuen orduko Josebak, Don Josek alegia, lagunekin brilean jolasten izerdituta barrenkalen gora etxerantz zihoan hartan neskatilari ezkaratz ilun batetik **agermen** irten zitzaion santuak. ETC-literatura, saiakera

Garretan sutu baitzen inguruko ikusleek zarpatik heldu edo Generalisimo Ezinobearen zaintzakoek atxilo zezaten baino lehen, deabruzko **agermena** izan zen, gorputza sutan ikarazko txorimalo, eta ikara hura frontoi osoa hartu zuen izulaborria bihurtu zen bontzo exaltatu hark bere burua amildu zuelarik kantxaraino zeuzkan hogei metro haietan behera garrasika [...] ETC-literatura, saiakera

Dada: objektuak oro, sentimenduak eta iluntasunak, **agermenak** eta marra paralerroen talka: Dada borrokaren baliagarriak dira: oroimenaren abolizioa: Dada: arkeologiaren abolizioa: Dada: profeten abolizioa: Dada: etorkizunaren abolizioa. ETC-prentsa

---

agerostenka *adlag* ezkutaketan jolasten.

Burutazioak zein zidor bihurritan barrena **agerostenka** zebilkidan azaldu diodanean. Jokin Urain

---

agerpen *(ETCn **5.455** agerraldi; cf **agerketa** **98** agerraldi)* **1** *iz* ikusgai bihurtzea, agerian azaltzea, erakustea, agerraldia.

Barruan **agerpen** bat: aparizio bat, alegia; larruazal zurbila, begi marroixka argiak, ezpainak arrosa indarge batekoak, soina argala. Unai Iturriaga

Héraclius gizon bihoztuna zen, egiaz, ez zuen mamuen edo **agerpenen** beldurrik, baina gizonaren ausardia handia izanda ere, badira izualdi batzuk ausardiarik bulartsuenak ere balaz bezala zulatzen dituztenak. Josu Zabaleta

Kontua zen grima bi aldiz agertu zitzaiola, eta bi **agerpenen** ondoren istripuak gertatu zitzaizkiola, ia hilgarriak. Iñaki Mendiguren

Izan ere, bestela esakune burugabe hau izango genuke ondoriotzat, alegia, **agerpenik** balegokeela agertzen den ezer egon gabe. Ibon Uribarri

Bigarren Mundu Gerra bukatu ondoren, bi potentzia erraldoien **agerpenak** nazioarteko harremanak erabat aldatu zituen. Berria - Kultura

Roccaren **agerpenak** haize freskoa ekarri dio Italiari. Berria - Kirola

Elvisen **agerpenak** , ordea, irauli egin zuen AEBetako musikaren panorama, eta haren ondoren, gazte ugarik jarraitu zuen bere bidea. Berria - Kultura

Ama Birjinaren **agerpena** izango balitz bezala-edo, orduan agertu zen Euskaltzaindia Euskal Telebistan. Pello Salaburu

Lau dira nagusiki anorexiaren **agerpena** iragartzen duten ezaugarriak. Berria - Euskal Herria

Izurriaren azken **agerpenaren** kontrako borroka koordinatzeko, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearekin (FAO) batera lanean ari dela esan zuen atzo OIEk. Berria - Gaiak

Honela iragartzen zuen *El Universal*ek presidentearen telebistako **agerpena**: [...]. Pako Aristi

Berehala sortu ziren Ama Birjinaren **agerpen** bati buruz mintzatzen ziren pertsonak. Bernardo Atxaga

Noizbait ere, jabetu nintzen: gu denok, gaztetxoa eta andrea, **agerpen** bat ginen, nire oroimenak leku desertu hartara ekarritako fantasma taldea. Bernardo Atxaga

Argazkian, argazkiak irudikatzen duen errealitatean, sinetsi ez ezik, argazkiak **agerpen** bat eragiten digu zinez, irudikatzen duen objektuari buruz. Josu Zabaleta

Haien poza Jainkoaren **agerpen** hura ikustean! Elizen arteko biblia

Kate hau ez da (37i) ereduaren adibidea, *have*-ren **agerpen** hau A kategoriakoa ez delako. Itziar Laka

Ez zuen espero nire **agerpena**, are gutiago nire galde sukartsua: [...]. Aingeru Epaltza

Ez bedi hemendik Raimundo Silvaren jaidura guztiak mairuen aldekoak direlako ondorioa atera, uler dezagun berezko errukiaren **agerpena** dela. Jon Alonso

Baliteke gugandik at materia deitzen diogun **agerpen** horri egokitzen zaion zerbait izatea; baina **agerpena** den heinean, ez da gugandik at, baizik pentsamendu soil bat gugan, nahiz eta pentsamendu hau aipatutako sentsuaren bitartez gugandik at balitz bezala errepresentatzen dugun. Ibon Uribarri

Nahiko polita zen, haurtxo hura, **agerpen** baten edertasun gardenekoa. Josu Zabaleta

Agerpen berean, Estefaniarengan "konfidantza handia" duela onartu, eta jokalari gazteak taldeari "zerbait berezia" ematen diola azaldu zuen. Berria - Kirola

ab, aabb, aaabbb,..., eta, oro har, a-ren n **agerpen** b-ren n agerpenez jarraiturik eraturiko perpaus guztiak, eta horiek bakarrik. Berria - Kirola

Agurrak, omenaldiak, esker oneko **agerpenak**, bukaerarako utzi beharko dira, taldea mailari eusteko borrokan dabilelako oraindik, eta hori edozein jokalariren gainetik dagoelako. Berria - Kirola

Filmeko irudiak, bere apailuaren eraginez, dituen pertzepziozko ezaugarri nagusietako bat bat-bateko **agerpen** horixe da, dena ala ezerezeko **agerpen** hori, garrantzi handiko ondorio bat bederen baduena: [...]. Josu Zabaleta

Elikadura-krisia edo nortasun-krisia, berdintsu: biak dira sustraien edo sustrai-ezaren **agerpen** eta horrelaxe izango dira geroaldian ere. Edorta Agirre

Alfer-alferrik zuen aitari deus esatea, hilkorren ahuleziatzat baitzeukan hark sentimenduen **agerpen** oro. Anjel Lertxundi

Giro goxo horretan, Anaren **agerpenak** baizik ez zezakeen ene bakea urra. Aingeru Epaltza

Sentsuen munduak **agerpenak** baino ez ditu barnebiltzen, hauek, ordea, era berean sentsuen arabera baldintzatuak diren errepresentazio soilak dira. Ibon Uribarri

Agerpenak sekulako ikusmina sortu zuen. Berria - Mundua

Izan ere, **agerpenak** beren baitan, errepresentazio soil gisa, hautamepenean soilik dira errealak, egitatean errepresentazio enpirikoaren, h[au] d[a], **agerpenaren** errealitatea besterik ez denean. Ibon Uribarri

Agerpenen materia, ordea, espazioan eta denboran diren gauzak ematen dizkiguna, hautemapenean soilik errepresenta daiteke, eta beraz, a posteriori. Ibon Uribarri

Ez da, beraz, ezagutzaren objekturik bere baitan, baizik **agerpenen** errepresentazioa besterik ez oro harrezko objektu baten adigaiaren menpean, alegia, **agerpenen** anizkunkiaren bitartez determinagarria den objektua. Ibon Uribarri

Hizkuntza, bere **agerpenaren** eta bere izaeraren mailan, enuntziatua da; neurri horretan bera deskribapen batetik sortzen da, ez dena ez transzendentala ez antropologikoa. Xabier Arregi

Materia, eta oro har munduari dagokiona, ez dela egokia jatorrizko eta beharrezko zerizanaren ideiarentzat, hau batasun enpiriko handienaren printzipio soila den aldetik, baizik mundutik at ezarri behar dela, hainbestez, munduko **agerpenak** eta bere izatea beti konfiantzaz beste **agerpenetatik** eratorri ditzakegulako, beharrezko zerizanik ez balego bezala. Ibon Uribarri

Harrotu behar badut -ezertarako ez bada ere-, Jaunarengandiko ikuskari eta **agerpenetara** joko dut. Elizen arteko biblia

Oinarri-esakune horien bitartez, beraz, sori izango zaigu **agerpenak** adigaien batasun logikoarekin eta orokorrarekin elkartzea, analogia baten arabera besterik ez izan arren. Ibon Uribarri

Paper horrek, gainera, paper gehiago zeramatzan barnean, paper hutsa baino askoz gehiago zirenak: gizakumeen egitate eta sentimendu, beldur eta nahikundeen **agerpena**. Xabier Mendiguren Elizegi

Arcoko egun hartara itzuliz, nik aitaren ahotsa aditzen nian han, eta ulertu nian nigan zuela jarraipena haren patuak, nigan dutela **agerpena** haren nortasun eta gustuek. Xabier Olarra

Hautagai bakoitzak bere **agerpena** egin zuen, eta Olaziregirenak oso harrera ona izan zuen, batez ere eremu urriko hizkuntzetako ordezkarien aldetik, "dominazio kulturalaren aurkako sentikortasuna" dutenen aldetik. Berria - Kultura

Zenbat aldiz, ez gizakien argibidez, Espiritu Santuaren **agerpenez** baizik, ezagutu zituen urruti zeuden anaien egintzak, agerian jarri bihotzen ezkutukoak, arakatu kontzientziak. Askoren artean

Linguistikaren gaia, lehenik, giza mintzairaren agerpen guztiez dago osatua, herri basatien **agerpenez** nahiz nazio zibilizatuen **agerpenez**, edota antzinako garaietan edo garai klasikoetan gertatutakoez. Isabel Arrigain

EAJko barne hauteskundeetan "azal-azaleko zauriak" baino ez direla izan azpimarratu zuen atzoko **agerpenean** Imazek: "Hauteskunde demokratikoak izan dira, eredugarriak", zehaztu zuen. Berria - Euskal Herria

Literaturan, izpiritu espainol -afrikar- patologiko honen **agerpenik** onena mediku batek eskaintzen du: Baroja-k. Joxe Azurmendi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

2004ko Literatur lehiaketako sari banaketa ekitaldira bildutakoak agurtzen ari zela adierazi zuen Jean Haritxelharrek atzokoa euskaltzainburu gisa egiten zuen azken **agerpen** publikoa zela. Berria - Kultura

Bozetan nagusitu direnek **agerpen** publiko guziak baliatzen dituzte geroztik ideia horren aitzin arazteko. Herria

Indarkeriaren **agerpen** ziklikoak dira. Berria - Euskal Herria

Paseatuz gindoazela, badiaren **agerpen** xarmagarri batek jo gintuen bat-batean: ontziak barreiaturik ageri ziren, Alcatraz hantxe erdian pitxi bat bezala. Xabier Olarra

Hesiodoren ilusioak arraroa dirudi, kontuan izanda, brontzezko arrazaz egiten duen deskribapenean, fantasia homerikoaren erreprodukzioarekin batera, barbaroaren **agerpen** errukigabea ematen digula, benetan den bezalakoa azalduz. Iñaki Mendiguren

Jakin ezazue, jaunak, etorri zareten Portugaleko lur hau, ez hemen, hegoalderago baizik, eta zortzi urte baizik ez direla, Kristo Gure Jainkoaren **agerpen** mirakuluzko baten lekua izan zela. Jon Alonso

Ezin izan zuela ezer egin izuaren **agerpen** lotsagarri hura eragozteko. Juan Luis Zabala

Galeoi espainiarraren **agerpen** bat-batekoak bere soraiotik atera zuen Gustavo. Felipe Juaristi

Buru gainera hautsa bota eta otoitz egin zioten Jaunari, Israel herria betiko ezarri eta, **agerpen** miresgarriak eginez, beti zaintzen duenari. Elizen arteko biblia

Atzokoan aurreko **agerpenetan** baino hizkera baikorragoa plazaratu zuen. Berria - Kirola

Espiritismo-gaua aukera jeniala zen ondo pasatzeko, espirituen inbokazioan eta haien balizko **agerpenean** sinetsi gabe ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Iruditzen zitzaidan agurraren tristezia bera ere -murmurikatzen zituen "je t'aime" gozoak edo ile adatsa aurpegitik kentzeko keinu gogogabea bezala- estiloari zegokion ezinbesteko **agerpena** zela, okasio bakoitzean okasioak eskatzen zuena egiteko dotorezia alegia. Ramon Saizarbitoria

Deseroso zegoen, ez baitzitzaizkion sentimenduen gehiegizko **agerpenak** atsegin. Anjel Lertxundi

Kristau-aroko zazpigarren mendean faktore berri bat sartu zen argudiaketan aktore berri baten forman, aparteko **agerpen** distiratsua egin zuelarik agertoki historikoan. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Vasquezen mamuaren **agerpen** leku kuttunenetako bat hauxe dela esan zenidan! Xabier Olarra

Ekimen eta **agerpen** andana egin dute, Korsikako haur eta gazteen artean, bereziki, tolerantzia balioak hedatzeko xedez. Berria - Mundua

Argiaren **agerpen**-maiztasuna bizkortzen denean, azkenean desagertu egiten da efektu hori, maiztasun kritikoa esaten zaion maiztasun maila batetik gora. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

EAJk gidatzen duen polizia baten bidez agur, omenaldi edo maitasun **agerpenak** debekatzea, ezin da ulertu. Berria - Harian

Hain zuzen ere, herritarren erabakia errespetatzeko borondate **agerpena** litzateke, Batasunaren ustetan, prozesuan behar den "egiaztapen demokratikoa". Berria - Euskal Herria

Borondate **agerpen** hori izan zen Zapateroren adierazpenik baliotsuena atzoko saioan. Berria - Harian

Inork ez baitzuen alferrikako irribarreekin edo itxurazko alaitasun-**agerpenekin** bere kemena nabarmendu nahi. Jose Morales

Aipamenak bai, jakinaren gainean dagoenaren aipamenak, baina ez hitz txarrik edo amorru **agerpenik**. Pako Aristi

5 erlijiozko eta bestelako egia edo egitate ezkutuez mintzatuz, ezagutaraztea. ik**errebelazio**.

Errebelazioa Apokalipsia edo **Agerpena**, Itun Berriko azken liburua. Xabier Olarra

Hau da Jainkoak Jesu Kristori egin zion **agerpena**, honek bere zerbitzariei laster gertatuko dena erakuts ziezaien. Elizen arteko biblia

San Frantzisko hil ondoren, aintzazko zauri sakratuak direla eta, anaia santu eta beste pertsona jaieratsu batzuei egindako zenbait **agerpen** eta errebelaziori buruz izango da. Askoren artean

Agerpen orok bere formaren arabera begiespen bat barnebiltzen du espazioan eta denboran, a priori beren oinarrian datzan begiespena. Ibon Uribarri

Espazioa kanpoko sentsuen **agerpen** ororen forma besterik ez da, h[au] d[a], kanpoko begiespena ahalbidetzen duen sentimenaren baldintza subjektiboa. Ibon Uribarri

Denbora oro harrezko **agerpen** ororen apriorizko baldintza formala da. Ibon Uribarri

Bi baldintza dira, ordea, objektu baten ezagutza ahalbidetzen dutenak, lehenik, begiespena, honen bitartez objektua emana izan dadin, **agerpen** gisa soilik izan arren; bigarrenik, adigaia, bere bitartez begiespen horri dagokion objektua pentsatua izan dadin. Ibon Uribarri

6 (izenondo eta izenlagunekin)

Agerpen zoriontsu hartatik aurrera, ordea, kazkabar-erauntsiak bukatu egin ziren, bertako bizilagunen harridurarako. Askoren artean

Ezin da esan adigai arrunta sentsuzkoa denik eta honek **agerpen** soila barnebiltzen duenik, izan ere. Ibon Uribarri

Handitasun intentsiboa **agerpen** ezberdinetan txikiagoa edo handiagoa izan daiteke, begiespenaren handitasun hedatua berbera izan arren. Ibon Uribarri

Apertzepzioaren batasun transzendental honek, ordea, esperientzia batean batera ager daitezkeen **agerpen** ahalgarri denetatik abiatuta errepresentazio horien guztien bilkura sortzen du legeen arabera. Ibon Uribarri

Egunetik egunera itxaropen eta konfiantza handiagoa zuen Salbatzailearengan, honek aurrez azaldua baitzion, goi-**agerpen** santuen bidez, gerora gertatuko zena. Askoren artean

Horrela, goiko **agerpen** batek argiturik, ulertu zuen Frantziskok Jaunak honetarako bidali zuela: deabrua hari kentzen ahalegintzen zen arimak Kristorentzat irabazteko. Askoren artean

7 goi agerpen

Aurrez azaldua baitzion, **goi-agerpen** santuen bidez, gerora gertatuko zena. Askoren artean

Bere baitan erabat bildurik, **goi-agerpen** honen misterioa sakontzera jarri zen. Askoren artean

Goi-agerpen batek eraginda igo nintzen. Elizen arteko biblia

San Frantziskok **goi-agerpenez** jakin zuen Jainkoak bidaliak zirela. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agerpen ahalgarri (4); **agerpen bat** (28); **agerpen bat besterik** (3); **agerpen bat da** (3); **agerpen batean** (3); **agerpen batek** (5); **agerpen baten** (13); **agerpen bati** (6); **agerpen berean** (3); **agerpen denak** (6); **agerpen eta** (5); **agerpen gisa** (38); **agerpen gisa baino** (5); **agerpen guztiak** (10); **agerpen guztien** (4); **agerpen guztietan** (4); **agerpen haiek** (3); **agerpen hauen** (4); **agerpen honen** (4); **agerpen hori** (6); **agerpen horiek** (8); **agerpen horren** (5); **agerpen hura** (5); **agerpen jakin** (9); **agerpen jakinen** (6); **agerpen miragarri** (3); **agerpen oro** (12); **agerpen orok** (7); **agerpen ororen** (24); **agerpen ororen multzoa** (5); **agerpen ororen osoki** (3); **agerpen orotan** (3); **agerpen publikoa** (5); **agerpen soil** (5); **agerpen soil gisa** (4); **agerpen soila** (7); **agerpen soilak** (6); **agerpen soilak dira** (3); **agerpena baino** (6); **agerpena baino ez** (4); **agerpena besterik** (5); **agerpena besterik ez** (5); **agerpena da** (5); **agerpena den** (11); **agerpena den aldetik** (6); **agerpena egin** (6); **agerpena eta** (8); **agerpena ez** (10); **agerpena ez den** (3); **agerpena ez dena** (3); **agerpena izan** (7); **agerpena izango** (3); **agerpena soilik** (3); **agerpenak baino** (6); **agerpenak baino ez** (6); **agerpenak baizik** (4); **agerpenak baizik ez** (4); **agerpenak berbaitango** (12); **agerpenak berbaitango gauzak** (9); **agerpenak berbaitango gauzatzat** (3); **agerpenak bere** (4); **agerpenak besterik** (6); **agerpenak besterik ez** (6); **agerpenak dira** (6); **agerpenak diren** (23); **agerpenak diren aldetik** (18); **agerpenak diren heinean** (3); **agerpenak edo** (3); **agerpenak eta** (6); **agerpenak ez** (11); **agerpenak ez dira** (5); **agerpenaren anizkunkiaren** (4); **agerpenaren forma** (3); **agerpenaren handitasun** (3); **agerpenari eta** (4); **agerpenean dagoen** (3); **agerpenean duten** (3); **agerpenei aplikatzean** (3); **agerpenei begira** (5); **agerpenei dagokienez** (9); **agerpenek beren** (3); **agerpenek denboran** (3); **agerpenen anizkunkia** (3); **agerpenen anizkunkiaren** (3); **agerpenen argipenean** (3); **agerpenen artean** (5); **agerpenen arteko** (6); **agerpenen baldintza** (4); **agerpenen batasun** (4); **agerpenen bilkura** (3); **agerpenen bitartez** (4); **agerpenen edozein** (3); **agerpenen errealitate** (3); **agerpenen gure** (3); **agerpenen ilara** (3); **agerpenen ilaran** (9); **agerpenen ilararen** (5); **agerpenen ilararen itzulera** (3); **agerpenen izatea** (3); **agerpenen kausa** (4); **agerpenen mundu** (4); **agerpenen oinarrian** (5); **agerpenen segida** (3); **agerpenen sintesi** (3); **agerpenen sintesian** (6); **agerpenez eta** (3); **agerpenez jakin** (4); **agerpenez jakin zuen** (4); **arimaren agerpenen** (3); **autugaia agerpenak** (3); **baizik agerpenak** (3); **baizik agerpenak besterik** (3); **barneko agerpenen** (4); **bat bateko agerpen** (3); **bateko agerpen** (4); **baten agerpen** (7); **baten agerpena** (12); **baten agerpenak** (8); **bere agerpena** (7); **bere agerpenak** (5); **berri baten agerpena** (3); **berrien agerpena** (3); **beste agerpenekin** (4); **beste agerpenen** (3); **da agerpen** (3); **da agerpena** (3); **da agerpenen** (6); **dauden agerpenak** (3); **den agerpen** (3); **diren agerpenak** (3); **du agerpen** (3); **du agerpena** (3); **dute agerpenen** (3); **edo agerpena** (3); **edo agerpenen** (5); **edozein agerpen** (3); **ere agerpen** (5); **eta agerpen** (12); **eta agerpen gisa** (3); **eta agerpena** (3); **eta agerpenak** (9); **eta agerpenaren** (5); **eta agerpenek** (4); **eta agerpenen** (6); **ez agerpen** (3); **ez agerpena** (3); **ezein agerpen** (3); **goi agerpen** (11); **goi agerpenak** (3); **goi agerpenez** (5); **goi agerpenez jakin** (4); **haren agerpenak** (4); **harrezko agerpen** (3); **hau agerpen** (5); **hau agerpenen** (3); **hauek agerpenak** (7); **hauek agerpenak diren** (6); **honek agerpen** (4); **kanpoko agerpen** (10); **kanpoko agerpenak** (4); **kanpoko agerpenen** (16); **kategoria agerpenei** (4); **lehen agerpena** (3); **munduko agerpenen** (4); **objektuen agerpenen** (3); **orduan agerpen** (5); **oro harrezko agerpen** (3); **zeren agerpenak** (3)

---

agerpide ik **agerbide**.

---

agerraldi *(orobat **agertaldi** g.er.)* **1** *iz* norbait edo zerbait agertzen den aldia. ik**agerketa**.

Agerraldi hartan nire bekatuen barkamena eta paradisuko zoriona ziurtatu zizkidan Jainkoak. Askoren artean

Bosgarren eta azken gogoeta, San Frantziskoren zauri sakratu santuak baieztatzeko eta Kristok ezarri zizkioneko eguna eta ordua ezagutzera emateko, Jainkoak haren heriotza ostean egin eta erakutsi zituen **agerraldi**, errebelazio eta mirariei buruzkoa da. Askoren artean

Ohar bedi ezin argudia daitekeela ibai-ertza den *bank* eta aurrezkiak gordetzeko *bank* hitz beraren **agerraldi** bi direnik, horixe baita, hain zuzen, ikergaia. Itziar Laka

Zeharka jausten ari zen euria, operako **agerraldi** bat ixten duen teloiaren gisan. Unai Iturriaga

Ez zen luzaz bizi izan mendiarte horretan: doi-doia han egon nobiziaduko urte hartan eta, tarteka, **agerraldi** bat edo beste egin. Piarres Xarriton

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Neure buruari frogatzeko irudipen horiek neure lehengo "siniskeria" haien **agerraldi** berria zirela, gogo hartu nuen Lakatos jaunari galdetzeko ea benetan herren egiten zuen. Matías Múgica

Agerraldi publiko bat prestatzerakoan zer esan behar dugun bezain garrantzitsua da berbaldi horretan erabiliko ditugun argudioen hurrenkera erabakitzea. Txema Ramirez de la Piscina

Botoizko soinua ikasten hasi zen orduan anaia Lorentzorekin, eta 17rekin egin zuen lehen **agerraldi** publikoa. Pako Aristi

Lehen **agerraldi** instituzionala izan zen. Berria - Harian

Parte hartzen dut jendaurreko irakurraldietan, idazle batzuen arteko **agerraldi** bateratua sustatzeaz gain, giro horretan gustura ibiltzen naizelako. Ana Urkiza

Estatuburu batzuek egun hauetan hartu erabakiek mundu zabalean sortzen dituzten gerlaren aurkako **agerraldi** jendetsuek erakusten dute ez dela gehiago, nazioarteko harremanetan, baliabide zuzena eta zuhurra izaiten ahal bortizkeria. Piarres Xarriton

Agerraldi miresgarri honetan La Verna mendi osoa sugar distiratsuz erretzen ari zela zirudien, dirdai egiten baitzuen eta inguru haietako mendi eta ibar guztiak argiz janzten, eguzkiak lurraren gain argi egitean bezala. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Agerraldi agindua, auzipetua agertzen ez bada, atxilotze agindu bihurtuko da. Berria - Euskal Herria

Hemengo publikoari jakinarazi nahi diot erabakiz alda dezakedala, ez badago **agerraldi** garantiarik. Berria - Euskal Herria

Parlamentuaren bozeramaileen mahaiak oniritzia eman zion, atzo **agerraldi** eskaerari, eta zuzendariak, beraz, azalpenak eman beharko ditu Kultura Batzordean. Berria - Kultura

Agerraldi eskeak Jaurlaritzaren "kontrol politikoa" helburu dutela azpimarratu zuen, eta Balzak azalpenak ematerakoan helburu hori bete zela iritzi zion. Berria - Euskal Herria

Elizak ez zion sinesgarritasunik eman horri, baina hainbat fededun ustezko **agerraldi** tokira joaten dira gaur egun ere hilean behin. Berria - Euskal Herria

4 *kale agerraldi* manifestazioa.

Kale agerraldiak eta manifestazioak demokraziaren oinarrietako bat dira. Berria - Harian

Aralarrek **kale agerraldiak** antolatuko ditu. Berria - Euskal Herria

Udaletxe atarian amaituko da **kale agerraldia**. Berria - Euskal Herria

Milaka polizia aurrean zituztela egin zuten **kale agerraldia**. Berria - Mundua

Orain arte egindako **kale-agerraldi** baketsuen oso bestelakoa. Berria - Mundua

Debekatutako **kale agerraldi** baten erantzule izatea. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

agerraldi bat egin (8); **agerraldi bat egingo** (3); **agerraldi bat egiteko** (3); **agerraldi batean** (27); **agerraldi batean azaldu** (3); **agerraldi baten** (9); **agerraldi berean** (9); **agerraldi egin** (3); **agerraldi eskaera** (3); **agerraldi eskea** (4); **agerraldi eskeak** (3); **agerraldi eta** (4); **agerraldi hartan** (6); **agerraldi hori** (8); **agerraldi horren** (4); **agerraldi horretan** (4); **agerraldi publikoa** (15); **agerraldi publikoa egin** (6); **agerraldi publikoak** (3); **agerraldi publikoan** (6); **atzo agerraldi** (4); **aurrean egindako agerraldi** (3); **bere agerraldi** (6); **beste agerraldi** (10); **beste agerraldi bat** (7); **bi agerraldi** (4); **bi agerraldi egin** (3); **bigarren agerraldi** (3); **egindako agerraldi** (18); **egindako agerraldi batean** (7); **eginiko agerraldi** (7); **eginiko agerraldi batean** (4); **ere agerraldi** (3); **eta agerraldi** (5); **kkkkkkale agerraldi** (3); **lehen agerraldi** (8); **lehen agerraldi publikoa** (4); **lehenengo agerraldi** (3); **agerraldi bat** (26); **prentsa agerraldi** (6); **zituen agerraldi** (3); **zuen agerraldi** (5); **zuten agerraldi** (3)

agerraldia amaitu (4); **agerraldia atzo** (3); **agerraldia bukatu** (3); **agerraldia egin** (158); **agerraldia egin behar** (4); **agerraldia egin du** (4); **agerraldia egin dute** (6); **agerraldia egin ondoren** (3); **agerraldia egin zuen** (62); **agerraldia egin zuten** (62); **agerraldia egingo** (17); **agerraldia egingo du** (7); **agerraldia egingo dute** (9); **agerraldia egitea** (6); **agerraldia egitea eskatu** (3); **agerraldia egiteko** (11); **agerraldia egiteko eskatu** (5); **agerraldia egiten** (4); **agerraldia eskaini** (12); **agerraldia eskaini zuen** (7); **agerraldia eskaini zuten** (5); **agerraldia eskatu** (49); **agerraldia eskatu du** (22); **agerraldia eskatu dute** (9); **agerraldia eskatu zuen** (9); **agerraldia eskatu zuten** (5); **agerraldia eskatuko** (3); **agerraldia eta** (6); **agerraldia galdegin** (3); **agerraldia hasi** (3 agerraldi bat egin (8); **agerraldi bat egingo** (3); **agerraldi bat egiteko** (3); **agerraldi batean** (27); **agerraldi batean azaldu** (3); **agerraldi baten** (9); **agerraldi berean** (9); **agerraldi egin** (3); **agerraldi eskaera** (3); **agerraldi eskea** (4); **agerraldi eskeak** (3); **agerraldi eta** (4); **agerraldi hartan** (6); **agerraldi hori** (8); **agerraldi horren** (4); **agerraldi horretan** (4); **agerraldi publikoa** (15); **agerraldi publikoa egin** (6); **agerraldi publikoak** (3); **agerraldi publikoan** (6); **atzo agerraldi** (4); **aurrean egindako agerraldi** (3); **bere agerraldi** (6); **beste agerraldi** (10); **beste agerraldi bat** (7); **bi agerraldi** (4); **bi agerraldi egin** (3); **bigarren agerraldi** (3); **egindako agerraldi** (18); **egindako agerraldi batean** (7); **eginiko agerraldi** (7); **eginiko agerraldi batean** (4); **ere agerraldi** (3); **eta agerraldi** (5); **kale agerraldi** (3); **lehen agerraldi** (8); **lehen agerraldi publikoa** (4); **lehenengo agerraldi** (3); **agerraldi bat** (26); **prentsa agerraldi** (6); **zituen agerraldi** (3); **zuen agerraldi** (5); **zuten agerraldi** (3)

agerraldia amaitu (4); **agerraldia atzo** (3); **agerraldia bukatu** (3); **agerraldia egin** (158); **agerraldia egin behar** (4); **agerraldia egin du** (4); **agerraldia egin dute** (6); **agerraldia egin ondoren** (3); **agerraldia egin zuen** (62); **agerraldia egin zuten** (62); **agerraldia egingo** (17); **agerraldia egingo du** (7); **agerraldia egingo dute** (9); **agerraldia egitea** (6); **agerraldia egitea eskatu** (3); **agerraldia egiteko** (11); **agerraldia egiteko eskatu** (5); **agerraldia egiten** (4); **agerraldia eskaini** (12); **agerraldia eskaini zuen** (7); **agerraldia eskaini zuten** (5); **agerraldia eskatu** (49); **agerraldia eskatu du** (22); **agerraldia eskatu dute** (9); **agerraldia eskatu zuen** (9); **agerraldia eskatu zuten** (5); **agerraldia eskatuko** (3); **agerraldia eta** (6); **agerraldia galdegin** (3); **agerraldia hasi** (3); **agerraldia izan** (7); **agerraldia izan zuten** (3); **agerraldia izango** (3); **agerraldia lepic** (3); **atzo agerraldia** (7); **atzo agerraldia egin** (4); **atzoko agerraldia** (15); **aurkezteko agerraldia** (5); **aurkezteko agerraldia egin** (5); **aurrean agerraldia** (6); **aurrean agerraldia egin** (3); **aurreko agerraldia** (15); **aurreko agerraldia egin** (5); **aurreko agerraldia eskaini** (4); **azken agerraldia** (16); **azken prentsa agerraldia** (4); **balzaren agerraldia** (4); **balzaren agerraldia eskatu** (4); **barne ministroaren agerraldia** (3); **batasunaren agerraldia** (4); **batera agerraldia** (3); **batzordean agerraldia** (5); **bere agerraldia** (6); **bere lehen agerraldia** (3); **bigarren agerraldia** (6); **bosgarren agerraldia** (4); **buruaren agerraldia** (3); **bushen agerraldia** (3); **da agerraldia** (3); **diputatuaren agerraldia** (3); **diputatuaren agerraldia eskatu** (3); **du agerraldia** (7); **dute agerraldia** (5); **egin dute agerraldia** (5); **egin zuen agerraldia** (24); **egin zuten agerraldia** (10); **egindako agerraldia** (5); **egingo du agerraldia** (4); **eginiko agerraldia** (4); **emateko agerraldia** (5); **emateko agerraldia egin** (3); **ere agerraldia** (4); **ere agerraldia egin** (3); **eta agerraldia** (5); **eusko legebiltzarrean agerraldia** (3); **haren agerraldia** (5); **herrizaingo sailburuaren agerraldia** (3); **kale agerraldia** (3); **kideek agerraldia** (6); **kideek agerraldia egin** (5); **kongresuan agerraldia** (4); **kontseilariaren agerraldia** (4); **legebiltzarrean agerraldia** (6); **legebiltzarrean agerraldia egin** (4); **lehen agerraldia** (27); **lehen agerraldia egin** (4); **lehenengo agerraldia** (7); **maskaraden lehen agerraldia** (3); **ministroaren agerraldia** (3); **minutuko agerraldia** (3); **nafarroako parlamentuan agerraldia** (3); **ordezkariek agerraldia** (4); **ordezkariek agerraldia egin** (4); **parlamentuan agerraldia** (4); **pastoralaren agerraldia** (3); **premiazko agerraldia** (3); **prentsa agerraldia** (12); **prentsa agerraldia egin** (4); **prentsaren aurrean agerraldia** (3); **prentsaren aurreko agerraldia** (11); **presazko agerraldia** (3); **sailburuak agerraldia** (3); **sailburuaren agerraldia** (4); **sailburuaren agerraldia eskatu** (4); **zapateroren agerraldia** (4); **zuen agerraldia** (32); **zuten agerraldia** (12); **zuten atzoko agerraldia** (3)

agerraldiak direla (3); **agerraldiak egin** (3); **agerraldiak egingo** (3); **agerraldiak eta** (4); **agerraldiak ez** (3); **agerraldian adierazi** (5); **agerraldian aurreratu** (3); **agerraldian aurreratu zuenez** (3); **agerraldian azaldu** (22); **agerraldian azaldu zuenez** (11); **agerraldian azaldu zutenez** (8); **agerraldian egin** (10); **agerraldian egin zituen** (7); **agerraldian egon** (4); **agerraldian erakutsi** (3); **agerraldian esan** (8); **agerraldian esan zuenez** (3); **agerraldian esandakoa** (3); **agerraldian eta** (3); **agerraldian ez** (6); **agerraldian iragarri** (3); **agerraldian izan** (7); **agerraldian izan ziren** (4); **agerraldian jakinarazi** (8); **agerraldian jakinarazi zutenez** (3); **agerraldian juan** (3); **agerraldian nabarmendu** (4); **agerraldian parte** (8); **agerraldian parte hartu** (6); **agerraldian zehaztu** (3); **agerraldiaren amaieran** (7); **agerraldiaren bukaeran** (3); **agerraldiaren hasieran** (3); **agerraldiaren ondoren** (9); **agerraldiaren ostean** (3); **antolatzaileek egindako agerraldian** (3); **atarian egindako agerraldian** (3); **atzo egindako agerraldian** (28); **atzo eginiko agerraldian** (16); **atzoko agerraldian** (157); **aurkezteko egindako agerraldian** (7); **aurkezteko eginiko agerraldian** (3); **aurrean egindako agerraldian** (29); **aurrean eginiko agerraldian** (13); **aurreko agerraldian** (6); **aurreneko agerraldian** (4); **azaltzeko agerraldian** (3); **azken agerraldian** (6); **batera egindako agerraldian** (10); **batera eginiko agerraldian** (3); **batera eskainitako agerraldian** (3); **batzordean egindako agerraldian** (4); **bere agerraldian** (7); **bere agerraldiaren** (5); **berri emateko agerraldian** (4); **bilbon egindako agerraldian** (15); **bilbon eginiko agerraldian** (9); **bileraren osteko agerraldian** (7); **donostian egindako agerraldian** (12); **donostian eginiko agerraldian** (17); **duten agerraldian** (3); **ean egindako agerraldian** (4); **egin zuen agerraldian** (24); **egin zuten agerraldian** (15); **egindako agerraldian** (249); **egindako agerraldian azaldu** (8); **egindako agerraldian egin** (3); **egindako agerraldian jakinarazi** (3); **egindako lehen agerraldian** (4); **eginiko agerraldian** (124); **eginiko agerraldian azaldu** (5); **emandako agerraldian** (4); **emateko agerraldian** (5); **emateko egindako agerraldian** (6); **eskainitako agerraldian** (7); **eskatutako agerraldian** (3); **eta agerraldiak** (4); **eta atzoko agerraldian** (3); **etxean egindako agerraldian** (5); **euren agerraldian** (3); **gasteizen egindako agerraldian** (4); **goizeko agerraldian** (4); **iruñ izan ziren agerraldian** (9); **izandako agerraldian** (4); **kale agerraldiak** (4); **kideekin egindako agerraldian** (3); **kontseiluaren osteko agerraldian** (4); **legebiltzarrean egindako agerraldian** (12); **legebiltzarrean eginiko agerraldian** (5); **legebiltzarreko agerraldian** (3); **lehen agerraldian** (11); **ondorengo agerraldian** (3); **ostean eginiko agerraldian** (6); **osteko agerraldian** (20); **parkean eginiko agerraldian** (3); **prentsa agerraldian** (11); **taldean egindako agerraldian** (3); **telebistan egindako agerraldian** (3); **ziren agerraldian** (13); **ziren atzoko agerraldian** (4); **zituen atzoko agerraldian** (5); **zituzten atzoko agerraldian** (5); **zuen agerraldian** (31); **zuen agerraldiaren** (3); **zuen atzoko agerraldian** (26); **zuen bere agerraldian** (3); **zuten agerraldian** (22); **zuten atzoko agerraldian** (11)

agerraldiei dagokienez (3); **azken agerraldietan** (3); **egindako agerraldietan** (7)

---

agerrarazi, agerraraz(i), agerrarazten *(orobat **agerarazi** g.er., **agertarazi** g.er., eta **agerrazi** g.er.)* du *ad* agertzera behartu.

Liburu honek hausnarketa eragin nahi du gure buru karratuetan, hizkuntzaren hondoko ur lasterrak azaleratu nahi ditu, ezkutukoa **agerrarazi**. Iñaki Arranz

Ilunpeetako sakonena **agerrarazten** du eta itzalik beltzenak argitara ateratzen. Elizen arteko biblia

Norberak duen txarrena **agerrarazten** dik, goiz ala berant. Berria - Kultura

Test berezi batek -fluoreszeina-angiografiak- makulako edema kistiko txiki bat **agerrarazi** zuen. Xabier Olarra

Epaiketak Vlaams Blok biktima gisa **agerrarazten** duela iritzi diote beste alderdiek. Berria - Mundua

Orduan **agerraraziko** ditu Jaunak gauza hauek berriro, eta Jaunaren aintza lainoan agertuko da, Moisesen garaian bezala, eta toki santu hau handikiro sagaratzeko Salomonek otoitz egin zuen hartan bezala. Elizen arteko biblia

Pantailan irudia agertzen ikusi nuenean, urduri nengoen erabat, eta berriro ere zin egin nion neure buruari egunen batean kurduak **agerraraziko** nituela filmetan. Juan Kruz Igerabide

Eraketa diskurtsibo jakin batek, konstelazio berri batean berrartuta, kokatuta eta interpretatuta, aukera berriak **agerraraz** ditzake. Xabier Arregi

Deskribapen global batek fenomeno guztiak erdigune bakar baten inguruan biltzen ditu: hastapena, esanahia, espiritua, mundu ikuskera, multzoaren forma; historia orokor batek, aitzitik, sakabanaketa baten espazioa **agerraraziko** luke. Xabier Arregi

Etendura erradikalenak hausturak dira, eraldatzearen lan teoriko baten bidez gauzatzen direnak "zientzia bat sortzean bere iraganeko ideologiaz askatuz eta iragan hori ideologiko bezala **agerraraziz**". Xabier Arregi

Amaren irudian emakumea ere badagoela **agerraraztea**. Ana Urkiza

Bi mutanteon kasuan, hain zuzen, organo bat hura espero ez den lekuan **agerraraztea** zen anomalia: hegal pare bat halterioen ordez, lehenbiziko kasuan; hanka bat antena gisa, bigarrenean. Juan Garzia

Diskurtsoa aztertzea kontraesanak desagerraraztea eta berriro **agerraraztea** da; kontraesanek diskurtsoan jokatzen duten jokoa erakustea; nola adieraz ditzakeen aldarrikatzea, gorputza ematea eurei, edo itxura iheskor bat ematea. Xabier Arregi

Oharteman dituzu, arratsapalean, Paris inguruko gure bide handietan, karrozaren lauhazkak zure aitzinean jarraika **agerrarazten** eta ezkutarazten dituen zumar guztien soslai izugarriak? Koldo Izagirre

Euskaltzaletasuna susmagarritzat **agerrarazteko** saioak gaitzetsi ditu. Berria - Euskal Herria

Han-hemen, argi-armiarmetan eta hormetan, etxeko lanparatxo bakanak piztu zituzten; gutxi ziren argitasuna sortzeko, baina aski ilunpeak **agerrarazteko**. Jose Morales

Arreta handia jarri behar duzu bereizgarri xehe eta ia ikusezin horiek guztiak begien aurrera **agerrarazteko**. Jose Morales

Trufa horrek eta beharbada neure bazterraldi luzeak hain desiragarri **agerrarazi** zidaten Émilie, non holandar hura berpiz zedin arte berarekin geldituko nintzela hitz eman bainion. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agerrarazi behar (3); **agerrarazi du** (6); **agerrarazi eta** (3); **agerrarazi zuen** (10); **agerrarazi zuen bere** (3); **agerraraziko luke** (3); **agerrarazten ditu** (5); **agerrarazten du** (12); **agerrarazten duen** (3); **agerrarazten dute** (3); **agerrarazten zuen** (6); **bat agerrarazi** (11); **bat agerrarazi zuen** (7); **bat agerrarazten** (6); **bezala agerrarazten** (3)

---

agerrarazpen *(corpusean **agertarazpen** soilik) iz* agerraraztea.

Hala ere, noumenoen aurkikuntzak eta **agertarazpenak** aukera zabala ematen dute, Lewisek "pentsamendu filosofikoaren aniztasun eta aztoramen amaigabea" deitzen duenerako. Xabier Olarra

---

agerrazi ik **agerrarazi**.

---

agerrera *iz* agertzea.

Catherineren **agerreraren** zain zegoen Joseba. Iñaki Zabaleta

Orduan aurrera egin ahal izanen dute jainkotasunaren **agerrera** santua ikustera, esan zen bezala: [...]. Xabier Kintana

"Yhwh, Israelen Jainkoa, hortik sartu baita"; eta gisa bereko pasarte guztietan Jainkozko gorentasunaren **agerrera** ematen da aditzera. Xabier Kintana

Garabietako langileentzat ere neketsuagoa zen lana, diamante-lapurren **agerreraz** geroztik kontu handiz jardun behar izaten baitzuten txatarra ontzietatik deskargatzean. Harkaitz Cano

"Zeren Siondik ilkiko baita Legea"; honen antzera, "Eguzkia lurraren gainetik atera zen", argitasunaren **agerreraz** mintzatzeko. Xabier Kintana

---

agerri *izond* ageria.

Are okerrago: martxoaren 29an (orain dela astebete, hain juxtu) batera gertatu dituk hilik, Bilboko **agerrian**, Rada eta Ollo nafartar jeneralak. Txillardegi

---

agerri *izond* ageria.

Are okerrago: martxoaren 29an (orain dela astebete, hain juxtu) batera gertatu dituk hilik, Bilboko **agerrian**, Rada eta Ollo nafartar jeneralak. Txillardegi

---

agerrinde *iz* agerkundea.

Sokrates! Nondik zatoz? Begiak odoleraino torratzen ditut, **agerrindea** benetakoa dela segurtatzeko. Itxaro Borda

---

agertaldi ik **agerraldi**.

---

agertarazi ik **agerrarazi**.

---

agertarazpen ik **agerrarazpen**.

---

agertezin *izond* ezin agertuzkoa.

Haren atsegin **agertezinak** eta aberastasunak eta betiko ohoreak kontenplatuz. Askoren artean

Baina bistan dago hiriari gainera etorri zitzaizkion zoritxar horietatik guztietatik onik atera zela jaia, sentipen eta emozio iturri iraunkor eta **agertezin** bezala. Askoren artean

-Zure aldia etorriko da -ahoskatu eta etorri bidetik urtu zen Rachel Rosen izenez aurkeztu zitzaidan androidea, nihauren zati **agertezina**, zioenez. Itxaro Borda

Fenomenoetako mundua (agerkorra) irudipena baizik ez da, egia-egiazkoa barnagoko **agertezina** izaki. Joxe Azurmendi

---

agertgarri ik **agergarri**.

---

agertoki *(ETCn **8.065** agerraldi; cf **agerleku 22** agerraldi)* **1** *iz* antzoki batean, teatro lana jokatzen den lekua. ik **antzeztoki**; **jokaleku**.

Egunez, antzokiko **agertoki** batean. Josu Zabaleta

Aurrealdean **agertokia**, non neska dantzari bat, beltza eta oso altua, ariketa musikalak ari zen egiten pixkanaka zeraman arropa eranzten zuen bitartean. Joxemari Iturralde

Bat-batean, **agertokia** eta antzokiko areto osoa argi bizi-bizi batez argituko dira. Josu Zabaleta

Aretoko argiak itzaltzen direnean, makinista ikusiko da **agertokiko** atetik sartzen. Josu Zabaleta

Ikusleek jasota aurkituko dute **agertokiko** oihala, antzokian sartzen direnean, eta **agertokia** bera ere, egunez bezala, ez eszena tresnarik ez eszena hegalik, batere gabe, ia ilunpean eta hutsik. Josu Zabaleta

Zeren pertsonaia bat poetaren irudimenean baizik ezin baitaiteke jaio era horretan, ez behintzat **agertoki** bateko oholtzan. Josu Zabaleta

Antzezleek hutsik utziko dute **agertokiaren** aurreko aldea. Josu Zabaleta

Agertokiaren aurrealdera aitzinatuz. Josu Zabaleta

Agertokiaren gorenean Lehen Ministroaren argazki handi bat esekia zegoen eta, haren azpian, Farat hautagaiaren ttikiago bat. Patxi Zubizarreta

Konpainia-burua **agertokira** igoko da berriro, ordena jartzeko. Josu Zabaleta

Agertokira zuzentzen zen pasabidearen albo banatan aulkiak egokitu zituzten. Patxi Zubizarreta

Bitartean, **agertokian** ikuskizunak aurrera jarraitzen zuen. Joxemari Iturralde

Pitoiefen eszenografian, antzezleak eta pertsonaiak ongi bereizteko, pertsonaiak igogailu baten bidez agerrarazten ziren **agertokian**, eta igogailu baten bidez desagerrarazten ziren, orobat, **agertokitik**, antzezleen ezintasunaz etsirik. Josu Zabaleta

Alabaina, ereserkia amaitutakoan, musikariak ez ziren **agertokitik** jaitsi. Patxi Zubizarreta

Bi eskaileratxo izango dira, bata eskuinean eta bestea ezkerrean, **agertokiaren** eta aretoaren artean lotura eginez. Josu Zabaleta

Bi dantzari ari dira batera eta bestera **agertoki** huts batean. Oskar Arana

Agertoki txiki-txiki batean zutik, proiektagailu ahulen argitan, emakume bat kantari, aldez aurretik grabatutako musikaz lagunduta. Jon Muñoz

Ondoren Ugazalaba, eta bereizirik geratuko da hura ere, aurrealdean, **agertoki** sarrerako arkuaren kontra bermaturik. Josu Zabaleta

Bien bitartean antzokiko atezaina aretoan sartua izango da, buruan uniforme kapela duela, eta, eserlekuen arteko pasabidea igarorik, **agertoki**-aurrera inguratuko da. Josu Zabaleta

2 irud/hed

Hauek hilketaren **agertokia** hesi batekin ixten ari ziren, ring bat sokarekin ixten den bezala. Joxean Agirre

Europako laku termalik handiena da, negu hotzean ur beroei lurruna darienean ipuinetako **agertokia** dirudiena. Joxean Agirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **agertoki bat** (5); **agertoki batean** (8); **agertoki baten** (3); **agertoki batera** (3); **agertoki berdean** (3); **agertoki berri** (3); **agertoki gainean** (5); **agertoki gainera** (3); **agertoki hartan** (4); **agertoki izango** (3); **agertoki izango ditu** (3); **agertokian bertan** (3); **agertokian ez** (3); **agertokiaren atzealdean** (3); **agertokiaren aurrealdean** (3); **agertokiaren aurrealdera** (3); **agertokiaren erdian** (6); **agertokiaren gainean** (4); **agertokietatik kanpo** (3); **agertokiko oihala** (3); **agertokira igo** (11); **agertokira igo eta** (3); **agertokira igo ziren** (3); **agertokira igoko** (5); **agertokira igoko da** (4); **agertokira igoz** (4); **berriro agertokira** (3); **beste agertoki** (8); **da agertokian** (6); **da agertokira** (6); **da agertokitik** (3); **dira agertokian** (7); **dira agertokira** (4); **eta agertokia** (3); **eta agertokian** (6); **eta agertokira** (3); **igo zen agertokira** (4); **irudiaren agertokiaren** (4); **zen agertokira** (4); **ziren agertokira** (3); **zuten agertokira** (3), hainbat agertokitan (3)

---

agertu, ager(tu), agertzen *(ETCn **197.147** agerraldi)* **1** ikusgai bihurtu, agerian, begi-bistan azaldu.

Zikin eta ergel sentitzen zen, hau da, kulpa **agertu** zen. Luis Elberdin

Txirrina jo nuen, lagunak nire atzetik errenkadan jarri ziren eta hara non **agertu** zitzaigun bibote fineko gizaseme elegante bat, arratsalde on monsieur esanez, burua makurtuz. Iñaki Zabaleta

Eta beste gau txar batean, beste kate bat **agertu** zen, horrek ere "euskal telebista" hartzen zuena izentzat, baina erdaldunez betea oraingo hau. Pello Salaburu

Bartolome Carranza bestalde ez zen **agertu** Alcalan 1515 urte arte eta ez zuten Azpilkuetarekin elkar ezagutu 1561ean baizik. Piarres Xarriton

Bat **agertu** zen, ostera, berna batean tirita horietako bat zuena. Edorta Jimenez

Bat-batean gizon bat **agertu** zen atari bateko itzaletatik, zorroa kendu zion eta korrika joan zen ihesi. Jon Muñoz

Hara: aurreko astean ez bezala, astelehen buruzuri euritsu sortu berrixean aldaketa fisikoak **agertu** ziren berriz ere Brown jaunarengan, kanpoko aldaketak esan nahi da, anatomiari zegozkionak. Karlos Linazasoro

Madrilgo telebista batean lanean hasitakoan **agertu** zen aldizkarietan. Xabier Montoia

Une hartan emakume bat **agertu** zen hutsetik, berrogeitaka urtekoa. Unai Elorriaga

Aurreko mezuan bezala, oraingoan ere poetaren izena ageri da, baina horren azpian izen berri bat **agertu** zaio neskari: Ruben. Patxi Zubizarreta

Pixka batera, eskuan bospasei gutun zituela **agertu** zen atezaina sukaldean. Joxemari Urteaga

Packertarrak **agertu** ziren une berean, neska gizonarengana jiratu zen, eta beraren kartoiko zenbaki bat seinalatu zion hatzaz. Koro Navarro

Azkenik, Aitor Arangureni ere azaldu nahi diogu geure esker ona, hasieratik gugan kon? antza osoa izan eta beti **agertu** delako edozertan laguntzeko prest. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Turkiarrari agur esatekotan nengoenean, orduan Fürst zakurra **agertu** zen, protestaka lehengo egun batean ostiko bat jo niolako ahoan. Fernando Rey

Herminiori sorpresa bat ematea erabaki nuen eta inori esan gabe **agertu** nintzen etxean, gure etxean. Jasone Osoro

Iluntasunetik beste zaldi batzuen irrintziek erantzun zioten, eta apatx-zarata gorrak ondoren; ustekabean hiru zaldizko **agertu** ziren ilargiaren argipeko espektro hegadunen antzera, eta mendebalderantz desagertu ziren. Agustin Otsoa

Beste moja bat **agertu** zen, oso gaztea, ate txiki batetik. Anjel Lertxundi

Alferrik duk ordainsari handi bat eskaintzea bila ari haizena **agertu** denean. Antton Olano

Zer, **agertu** al da zer hori ostera gaueon? Juan Garzia

Atso eta Tupinak beren gisako dantza edo katzaka egiten dute, baina azkenik, dantzari guziak **agertu** direnean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beste bi argazki solte **agertu** dira oraindik. Iban Zaldua

Urek jaitsi eta jaitsi jarraitu zuten hamargarren hila arte; hilaren lehen egunean mendigailurrak **agertu** ziren. Jose Antonio Mujika

Haren heriotzari buruzko dokumentu berriak **agertu** dira. Joseba Zulaika

Bihotz arrosa handi bi **agertu** ziren telebistan, eta bukatu zen amodio gaitzezko programa. Unai Iturriaga

Izan ere, bertan **agertu** zen lehen aldiz Peter Pan, horrela deituta behinik behin. Julen Gabiria

Gau hartan Jauna **agertu** zitzaion ametsetan Gabaonen, eta esan zion: - Eskatu nahi duzuna, eta emanen dizut. Elizen arteko biblia

Hodei artetik **agertu** zen, papar gainean gitarra jotzeko mugimendu hari zitalki berrekiten ziola. Ramon Saizarbitoria

Berria herri urrunenetara ere ailegatu zen, eta haietatik ere **agertu** ziren zaldia ikustera. Fernando Rey

Handik pare bat egunera, desagertutako lekuan **agertu** zen berriro autoa, oso-osorik. Joxerra Garzia

Autotik bere kabuz ateratzea lortu zuen, besoak gora jasota, eta argazki hori **agertu** zen biharamunean egunkari guztietan: eskuak erre zitzaizkion gizarajoari; ez zuen beste ezer izan. Pako Aristi

Esaldia bukatu orduko **agertu** zen Orrondo, eta handik gutxira Paulo. Pedro Alberdi

Elurpe hartan elkarri begira geundela, ama **agertu** zen, zulo gaineko haitz batean harro, begiak nigan iltzatuta, hortzak erakusten zizkidan. Jon Maia

Zoritxarrez, kontatzen ari naizen azken topaldi honetan ez zen Oñatiko inor **agertu**. Xabier Mendiguren Elizegi

Amaordearen ama gerrarako zirudien kono itxurako txanoa jantzita **agertu** da, hegal eta guzti: luma bat zeraman aurrean alderik alde. Urtzi Urrutikoetxea

Eta hori egin ondoren, doluminik sentituenak **agertu** eta Carlosek artega luzatzen zien eskua estutu zuten bertaraturiko guztiek. Bego Montorio

Harryk ongi aztertu zuen argazki mugikorra, eta irribarre zabal bat **agertu** zitzaion aurpegian, bederatzi Weasleytarrak berari sutsu agur egiten ikusi zituenean piramide handi baten aurrean. Iñaki Mendiguren

Gero, ordea, olagarroa **agertu** zen bat-batean haren bizitzan, Jules Verneren txibia erraldoien antzera -estualdian jarriko baitzuten Nemo kapitainaren urpeko ontzi bikaina bera. Imanol Zurutuza

Goizean, poliziak artean **agertu** gabe. Eskarne Mujika

Apustuak aipatzen dituen artikulu bat, baina ez dakit ze aletan **agertu** zen. Xabier Etxabe

Handik gutxira Sonia **agertu**, eta bere alboan eseri zen. Aritz Gorrotxategi

Karmen **agertu** zen, kulerotan eta bularrak agerian, sukaldean. Inazio Mujika Iraola

Handik pixka batera, erruduna beste norbait zela garbi adierazten zuten frogak **agertu** ziren, baina Dreyfus zigorturik jarraitu zuen, eta beste ofiziala errugabetzat jo zuten gerra kontseilu batean. Karlos Zabala

Halako batean gure ondora Siegfried jaunaren gorputz larria **agertu** zen. Fernando Rey

Joxek kasu emanez laxatu du izter elkartuetan daukan pañuelo haundiaren korapiloa eta primaderako zizak **agertu** dira. Pello Lizarralde

Espiritu bat **agertu** eta hartaz jabetu izan balitz bezala. Antton Olano

Albistearen inguruan **agertu** ziren aieruak ere, bide beretik, aldatuz joan ziren denboraldi hartan zehar. Iñaki Iñurrieta

Jeneralaren buru soildua leihatilan **agertu** zen. Bernardo Atxaga

Hor **agertu** zen coca-cola light bat latatik bertatik edaten zuen bitartean, zurbil. Harkaitz Cano

Zer eskubide zenuen nire aurrean **agertu** eta zure bihotza horrela biluzteko, erakusaldi ia inpudiko batean? Xabier Mendiguren Elizegi

Sotoko behitegian, ganbelapeko zokoan, abarka mutur bat **agertu** zitzaidan, gernugorotz lehortuz denborak urreztatua. Patziku Perurena

Delako "yersinia pestis" baziloa **agertu** zen eta izugarrizko lazturak hartu zuen jendea. Gotzon Garate

Zorigaitzez, azken urte hauetan, totila bat edaten zuen eta batzuetan, bi-hiru egunetaraino egoten zen lanera **agertu** gabe. Daniel Landart

Azkenean, pistola biak **agertu** dira zirritu ezkutu batean. Rafa Egiguren

Soldadu italiarren zenbait sekzio **agertu** ziren geroxeago kaian. Jokin Urain

Batzuetan konponbide on baten, ideia on baten itxurapean **agertu** ohi naiz. Xabier Aranburu

2 (adizlagunekin)

Bazkaltzeko garaian poz-pozik **agertu** omen nintzen; ondo bazkaldu omen nuen; eta, nire goiz zoragarri haren berri ematera, gelaraino joan omen nintzaion Groduduri. Jesus Mari Mendizabal

Historia honela hasi zen: nekazari baten gorpua odolusturik **agertu** zen orain dela gutxi eta hozkaden arrastoak zeuzkan lepoan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta, lekuko berantiar **agertu** nintzelarik nire logelako leihora, goizean goizik gertatu berri zen triskantza hura ikustera, txantxangorri aita-amak ere hantxe zeuden begira, ni bezain aztoratu eta babesgabe. Mirentxu Larrañaga

Eskuzabal **agertu** nahi zuen agian, besterik gabe. Ander Irizar

Egun batean aitortu nion tsarraren aurkako bide-lapur nomada bat nintzela, eta ilehoria nahiko pozik **agertu** zen. Pello Lizarralde

Pont-Cardineteko geltokira laguntzeko prest **agertu** zen, eta han tren bat hartuko nuen zuzenean Saint-Lazarera eramango ninduena. Joseba Urteaga

Nahiz eta hasieran duda izpi bat izan zuen, pittin bat geroxeago garbi **agertu** zitzaion eztabaida hartan builaka ari ziren ahotsen artean bat Maddalenena zela. Joxemari Iturralde

Eta iruditzen zaio halako samina duen inor ezin litekeena eder **agertu** argazkietan, samina itsusia delako, bizitza zatartzen duen egoera bat. Pako Aristi

Zer egin nezakeen? Bi irtenbide nituen: tinko **agertu**, gizona gelatik bota, nire gauzak hartu eta ez-dakit-nora joan, edo esana egin eta niretzat hainbeste erosotasun zuen etxe hartan bizitzen jarraitu. Juan Martin Elexpuru

Enperadorea eskuzabal **agertu** zen: eskola-liburuetan esaten den moduan: "Kontuz ibiltzen ahal zara! Xabier Olarra

Afarian aurrera egin ahala, eskola kontuak aipagai, esker oneko **agertu** zen fraideekiko. Joxerra Garzia

Imanoli ez nion zuzenean galdetuko, ez nuelako bera baino ezjakinago **agertu** nahi. Aitor Arana

Geroago baratxe-baratxe **agertu** ziren zakurrak, ehunka mota. Gotzon Garate

Argitsu eta atsegin **agertu** zen gela; ohe nahasiak eta burusi lurrera eroriak soilik salatzen zuten halako izu oraindik guztiz iraungi gabe bat. Jose Morales

Zakarreria bera nahiago nukeen une hartan, melodramatiko **agertu** baino. Txillardegi

Ez nuke esker txarreko **agertu** nahi zure begietara, baina neurriz kanpoko begirunea azaldu dizu bere azken egunetan. Arantxa Iturbe

3 du *ad* erakutsi, azaldu.

Ez nuke hitzaurretxo hau amaitu nahi aspaldiko partez berriro irratian jarduteko aukera eman didatenei neure esker ona **agertu** gabe. Joxerra Garzia

-Ez ninan usteko... - **agertu** zuen Alaznek. Fernando Morillo

Peruk bere arazoa **agertu** zion. Pako Aristi

Hots horien bitartez, hormari egunero aurrez aurre begiratu diotenen bizipenak **agertu** nahi ditu. Edurne Elizondo

Furio Colombo italiarrak kontatu du Fox-TV kateak nola **agertu** zuen Somaliara joandako soldadu estatubatuarren itzulera. Txema Ramirez de la Piscina

Eta hara, inori bere asmorik **agertu** gabe, eta inork ikusteke, goiz batean eguna baino lehen, (uztaileko kiskali haietakoa zen) jantzi zituen bere arma guztiak, igo zen Rozinanteren gainera [...] Patxi Ezkiaga

Bertsolaritza, orain arte, euskal herri-literaturaren azpisail moduan **agertu** izan dute ia beti aztertzaileek beren lanetan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aste gutxi barru, eskerronezko parezerra **agertu** zuten gehienek: erantzun zuten 30 alkate eta 56 parrokotatik, bana izan ziren hain gustura ikusten ez zutenak: sakristau temoso samarren bat izango zuten alboan igual... Pello Zabala

Xuxen asko diosku Descartes-ek berak **agertu** diola munduari bere metodoa. Juan Garzia

Gabik berehala **agertu** du burua beren sorbalden gainetik. Jokin Muñoz

Baina zortzi idazle hauek, arestian esan bezala, gaur egungo euskal literaturaren kanonean sartzeko balioa dutela **agertu** nahi izan dut, literatur espazio pertsonala eta guztiz baliotsua sortu dutelako. Ana Urkiza

Eta Jaunak anaiak eman zizkidanean, inork ez zidan erakutsi zer egin behar nuen, baizik eta Goi-goikoak berak **agertu** zidan Ebanjelio santuko moldearen arabera bizi behar nuela. Askoren artean

Izan ere, azentua soilik prosodiak baldintzatua denean, azentuaren kokalekuak ertzaldekotasunerako joera **agertu** ohi du. Lourdes Oñederra

Kontrolgunean, Ségouinek lehiakide frantsesetako bati aurkeztu zion Jimmy, eta, Jimmyren konplimenduzko murmurio nahasiaren erantzun gisa, gidariaren aurpegi eguzki-kolorekoak hortz zuri distiratsu ilara bat **agertu** zuen. Irene Aldasoro

-Mila esker, jaunak, nire aldera hain luzaro erakutsi duzuen interesagatik eta hortaz nireganako **agertu** duzuen estimuagatik! Matías Múgica

4 ***ados agertu*** bat etorri.

Baina **ados agertu** ginen guztiok. Oskar Arana

Denak ala denak ere **ados agertu** ziren, eta lapurren lapurra topatu arte ez etsitzea erabaki zuten. Patxi Zubizarreta

Txirrindularia bera eta Liberty taldeko Manuel Saiz kirol zuzendaria, Galdeanoren gainbeheraren iturburuan **ados agertu** dira sarri. Berria - Kirola

EAJ-EA taldea **ados agertu** da Kortaren izendapenarekin; ez, ordea, Josep Ramonedarenarekin Berria - Kultura

-Nahi duzun bezala, nagusi jauna - erantzun zuen Selifanek, guztiarekin **ados agertuz**-, jipoitu behar banauzu, datorrela jipoia; ez dut ezer horren kontra. Jose Morales

Baina, noski, Keynes ez da gisa honetako noizbehinkako eta, sarritan, guztiz alferrikako neurriekin **ados agertzen**, bereziki, eskaria efektiboan eragiten duten arrazoiak zeintzuk diren jakinda. Iñaki Heras

-Zuk esan duzun bezala - **ados agertu** zen Heinrich, irriz eta mahai gainean balantzaka. Fernando Rey

Maria **ados agertu** zitzaion eta baiezko buru-keinu eta ahum isilez aldeztu zuen. Irene Aldasoro

5 ***ager-gordeka*** *adlag*

Nik leku batean uste nuena, beti besteren batetik agertzen zitzaidan, belar tartetik lepoa luxatuz, ager **gordeka:** "Ai aluxa, hor al hintzenan, hor!". Patziku Perurena

Handik, amildegiaren beherenean, ibaia ager-**gordeka** bistatu dudanean. Patxi Zubizarreta

6 ***agertzeko agindu***

Hilaren 25ean Euzkadi'ko Jaurlaritzak Baionan duen Ordezkaritzakoek eta horren prentsa eta informazio zerbitzuek, Euzkadi Buru Batzarrekoek eta ELA/STVren Nazio Batzordeko kideek, Robles Arangizek izan ezik, eskualdeko Gendarmeriera **agertzeko agindua** hartu dute. Edorta Jimenez

Azken horri pasaportea kendu eta hamabostero komisarian **agertzeko agindua** eman zioten. Berria - Euskal Herria

Egun arte eman duen elkarrizketa bakarrean esan duenez, argazkietan **agertzeko agindua** jaso zuen eta irudiok "helburu psikologikoekin» erabiltzeko egin zituzten, hau da, "presoak mintzarazteko». Berria - Mundua

Epailearen aurretik pasa gabe utzi beharko gintuzten libre baina, hori gure atxiloketaren bidegabekeria ozenki aitortzea litzatekeenez, fidantza txiki bat jarri eta baldintzapean

askatu gintuzten, hamabostean behin gure herriko ertzain-etxean sinatzera **agertzeko aginduarekin**. Xabier Mendiguren Elizegi

7 *agertzeko leku*

Gutienez, oposiziokoak jakinean izanen dira eta beren ikusmoldearen **agertzeko leku** bat ukanen dute. Herria

Ez dugu hemen horien osoki **agertzeko lekurik**. Herria

8 *otsoa agertu*

Otsoa aipatu eta **otsoa agertu**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

ados agertu (48); **ados agertu zen** (16); **agertu ahal** (18); **agertu arren** (39); **agertu arte** (38); **agertu aurretik** (24); **agertu baino** (34); **agertu baino lehen** (15); **agertu baita** (19); **agertu baitira** (16); **agertu baitzen** (27); **agertu bazen** (11); **agertu behar** (122); **agertu behar du** (13); **agertu behar dute** (11); **agertu behar izan** (13); **agertu behar zuen** (11); **agertu beharko** (44); **agertu beharra** (22); **agertu berri** (18); **agertu bezain** (21); **agertu da** (1059); **agertu da eta** (26); **agertu dela** (70); **agertu delarik** (11); **agertu den** (140); **agertu dena** (22); **agertu denean** (11); **agertu die** (11); **agertu dio** (25); **agertu diote** (33); **agertu dira** (579); **agertu dira eta** (19); **agertu direla** (57); **agertu diren** (96); **agertu direnak** (20); **agertu ditu** (45); **agertu dituzte** (39); **agertu du** (342); **agertu duen** (34); **agertu duk** (12); **agertu dute** (157); **agertu duten** (30); **agertu ere** (58); **agertu eta** (233); **agertu ez** (121); **agertu ez arren** (12); **agertu gabe** (59); **agertu izan** (97); **agertu izan da** (14); **agertu izan dira** (16); **agertu izana** (35); **agertu izanak** (21); **agertu nahi** (166); **agertu nahi du** (16); **agertu nahi izan** (37); **agertu nintzen** (30); **agertu ohi** (83); **agertu ohi da** (25); **agertu ohi dira** (11); **agertu omen** (26); **agertu ondoren** (35); **agertu orduko** (34); **agertu zaigu** (22); **agertu zaio** (16); **agertu zait** (29); **agertu zaizkigu** (11); **agertu zara** (12); **agertu zela** (70); **agertu zelako** (13); **agertu zelarik** (17); **agertu zen** (2612); **agertu zen arte** (24); **agertu zen atzo** (192); **agertu zen bere** (17); **agertu zen berriro** (18); **agertu zen eta** (61); **agertu zen herenegun** (11); **agertu zen lehen** (27); **agertu zen orduan** (18); **agertu zena** (16); **agertu zenean** (94); **agertu zenetik** (20); **agertu zidan** (20); **agertu zien** (38); **agertu zieten** (11); **agertu zion** (110); **agertu zioten** (26); **agertu zirela** (37); **agertu ziren** (1013); **agertu ziren atzo** (80); **agertu ziren eta** (22); **agertu zirenean** (27); **agertu zituen** (51); **agertu zituzten** (18); **agertu zitzaidan** (61); **agertu zitzaien** (53); **agertu zitzaigun** (34); **agertu zitzaion** (234); **agertu zitzaion eta** (13); **agertu zitzaionean** (12); **agertu zitzaizkien** (13); **agertu zitzaizkion** (36); **agertu zizkion** (11); **agertu zuela** (11); **agertu zuen** (614); **agertu zuen atzo** (54); **agertu zuenez** (29); **agertu zuten** (166); **agertu zuten atzo** (24)

aingerua agertu (13); **alde agertu** (459); **alde agertu da** (71); **alde agertu dira** (55); **alde agertu zen** (169); **alde agertu ziren** (63); **aldeko agertu** (30); **aldeko agertu zen** (18); **aldeko jarrera agertu** (11); **aldiz agertu** (16); **argi agertu** (14); **arte agertu** (13); **asko agertu** (28); **asmoa agertu** (247); **asmoa agertu du** (60); **asmoa agertu dute** (24); **asmoa agertu zuen** (78); **asmoa agertu zuten** (25); **atean agertu** (17); **atxikimendua agertu** (18); **atzo agertu** (12); **aurka agertu** (201); **aurka agertu da** (36); **aurka agertu dira** (29); **aurka agertu zen** (54); **aurka agertu ziren** (34); **aurrean agertu** (100); **aurrean agertu zen** (24); **aurrera agertu** (19); **babesa agertu** (56); **baikor agertu** (110); **baikor agertu da** (23); **baikor agertu zen** (57); **bakarrik agertu** (14); **bat agertu** (487); **bat agertu da** (83); **bat agertu eta** (13); **bat agertu zen** (224); **bat agertu zitzaidan** (11); **bat agertu zitzaion** (32); **bat batean agertu** (17); **bat ere agertu** (15); **batean agertu** (73); **batean agertu zen** (18); **batekin agertu** (25); **batekin agertu zen** (11); **batera agertu** (21); **batzu agertu** (13); **batzuk agertu** (46); **batzuk agertu ziren** (21); **beharra agertu** (13); **bera agertu** (45); **bera agertu zuen** (13); **berak agertu** (12); **berehala agertu** (45); **berehala agertu zen** (19); **berehala agertu ziren** (14); **berri bat agertu** (24); **berria agertu** (12); **berriak agertu** (23); **berriak agertu dira** (12); **berriro agertu** (47); **berriro agertu zen** (13); **berriz agertu** (53); **bertan agertu** (15); **beti agertu** (20); **bezala agertu** (41); **biltzeko asmoa agertu** (11); **borondatea agertu** (60); **borondatea agertu zuen** (17); **burua agertu** (23); **buruan agertu** (11); **da agertu** (47); **dela agertu** (26); **dela agertu zuen** (13); **desadostasuna agertu** (16); **dira agertu** (25); **direla agertu** (14); **doluminak agertu** (11); **du agertu** (13); **duela agertu** (21); **dutela agertu** (18)

egitearen alde agertu (25); **egiteko asmoa agertu** (25); **egiteko prest agertu** (50); **elkartasuna agertu** (44); **elkartasuna agertu zien** (14); **emateko prest agertu** (33); **ere agertu** (193); **ere agertu da** (17); **ere agertu dira** (11); **ere agertu zen** (34); **ere agertu ziren** (23); **ere pozik agertu** (12); **esperantza agertu** (25); **esperantza agertu zuen** (17); **eta agertu** (37); **eta babesa agertu** (11); **eta garbi agertu** (12); **eta han agertu** (17); **eta kezka agertu** (13); **eta pozik agertu** (13); **ez agertu** (22); **ez da agertu** (34); **ez dira agertu** (16); **ez zen agertu** (71); **ez ziren agertu** (18); **ezkor agertu** (14); **gabe agertu** (26); **gainean agertu** (11); **gaitza agertu** (21); **garbi agertu** (17); **gehiago agertu** (39); **gisa agertu** (47); **gisa agertu nahi** (11); **gizon agertu** (11); **gizon bat agertu** (21); **gogoa agertu** (13); **gorpuak agertu** (11); **gustura agertu** (53); **gustura agertu zen** (28); **gustura agertu ziren** (14); **hala agertu** (18); **han agertu** (72); **han agertu zen** (33); **han agertu ziren** (11); **handi bat agertu** (14); **handia agertu** (25); **hantxe agertu** (22); **hara agertu** (11); **harrituta agertu** (25); **harrituta agertu zen** (17); **harro agertu** (18); **hartan agertu** (12); **haserre agertu** (43); **haserre agertu zen** (23); **hau agertu** (11); **hegaztiak agertu** (15); **hilda agertu** (44); **hilda agertu zen** (13); **hilda agertu ziren** (11); **hilik agertu** (40); **hilik agertu zen** (16); **honetan agertu** (11); **hor agertu** (23); **hori agertu** (28); **horrela agertu** (12); **horren alde agertu** (13); **horren kontra agertu** (13); **hura agertu** (11)

inoiz agertu (19); **inor agertu** (14); **interesa agertu** (24); **iritzi bera agertu** (14); **iritzia agertu** (22); **irudia agertu** (14); **itxaropena agertu** (49); **itxaropena agertu zuen** (35); **itxaropentsu agertu** (59); **itxaropentsu agertu da** (16); **itxaropentsu agertu zen** (29); **jantzita agertu** (17); **jarraitzeko asmoa agertu** (16); **jarrera agertu** (30); **jauna agertu** (22); **jauna agertu zitzaion** (12); **jaunak agertu** (14); **kexa agertu** (14); **kexu agertu** (45); **kexu agertu zen** (14); **kezka agertu** (116); **kezka agertu du** (25); **kezka agertu dute** (16); **kezka agertu zuen** (40); **kezka agertu zuten** (11); **kezkatua agertu** (11); **kezkaturik agertu** (23); **kezkatuta agertu** (124); **kezkatuta agertu da** (30); **kezkatuta agertu dira** (18); **kezkatuta agertu zen** (63); **kezkatuta agertu ziren** (11); **konpromisoa agertu** (39); **konpromisoa agertu zuen** (11); **kontent agertu** (14); **kontra agertu** (161); **kontra agertu da** (34); **kontra agertu dira** (22); **kontra agertu zen** (41); **kontra agertu ziren** (32); **kritiko agertu** (42); **kritiko agertu da** (12); **kritiko agertu zen** (16); **kutsatuak agertu** (12); **laguntzeko prest agertu** (17); **laster agertu** (22); **nahia agertu** (31); **nahia agertu zuen** (17); **negoziatzeko prest agertu** (14); **nola agertu** (21); **non agertu** (16); **ona agertu** (19); **onartzeko prest agertu** (17); **ondoan agertu** (19); **orduan agertu** (29); **orduan agertu zen** (18); **oso kezkatuta agertu** (14); **oso kritiko agertu** (17); **oso pozik agertu** (17); **osoa agertu** (29); **polizia agertu** (16); **poza agertu** (30); **poza agertu zuen** (14); **pozik agertu** (265); **pozik agertu da** (55); **pozik agertu dira** (14); **pozik agertu zen** (154); **pozik agertu ziren** (34); **prest agertu** (371); **prest agertu da** (93); **prest agertu dira** (42); **prest agertu zen** (148); **prest agertu ziren** (40); **prestutasuna agertu** (14); **sendo agertu** (18); **sostengua agertu** (26); **urtean agertu** (11); **uzkur agertu** (15); **uzteko prest agertu** (12); **zalantzak agertu** (20); **zela agertu** (22); **zen agertu** (75); **ziren agertu** (22); **ziur agertu** (23); **ziur agertu zen** (20); **zuela agertu** (21); **zuen agertu** (14); **zuhur agertu** (16)

agertua da (12); **agertua zen** (21); **agertuak dira** (12); **agertuko balitz** (17); **agertuko da** (185); **agertuko dela** (21); **agertuko den** (37); **agertuko dira** (129); **agertuko direla** (16); **agertuko diren** (21); **agertuko dituzte** (13); **agertuko du** (23); **agertuko dute** (15); **agertuko ez** (18); **agertuko ote** (13); **agertuko zain** (25); **agertuko zela** (29); **agertuko zen** (38); **agertuko ziren** (12); **agertutako jarrera** (14); **agertuz eta** (16); **agertuz gero** (31); **alde agertuko** (16); **bat agertuko** (32); **berriro agertuko** (11); **berriz agertuko** (14); **da agertuko** (11); **ere agertuko** (23); **gehiago agertuko** (13); **gisa agertuko** (12); **han agertuko** (11); **hor agertuko** (14); **noiz agertuko** (57); **noiz agertuko zain** (24)

---

agertzaile *izond* agertzen duena.

Gero, esan zion: -Egiaz jainko guztietan handiena da zuen Jainkoa; erregeen jaun da eta misterioen **agertzaile**, gauza izan baitzara zu misterioa niri agertzeko. Elizen arteko biblia

Azkenik, izan liteke nahas-mahas doiki zedarritzen zail bat: xenofobo, aldizka sentimendu eta espresio arrazisten **agertzaile**, etab., eta hala ere pentsaera eta jarrera ez arrazistakoa funtsean. Joxe Azurmendi

---

agertze 1 *iz* ikusgai bihurtzea, agerian, begi-bistan azaltzea.

1930eko azaroaren 22an Ku Klux Klanek **agertze** bat egin zuen Whistle Stopeko kafean. Pablo Sastre

Baginakien, urrun ibili gabe, Maria Sainduaren Otoitz-Etxe bat baginuela hor, aspaldikoa: 1469 an hasia, noiz eta zeruko Amaren **agertze** bat izan bide baitzuen artzain batek. Herria

Aipatu puntu horretako hizkeran eta beste hizkera batean bietan ezaugarri bat baldin badugu, "intercourse"ri eskerrak izango da beti bietan **agertze** hori. Isabel Arrigain

Soberan diren langileen **agertze** hori, areagotzen ari den kapitala bera baino azkarragoa denez, zer egiten da beharrezkoa ez den langile zenbateko gero eta handiago horrekin? Iñaki Heras

Ordena bat euren **agertze** jarraituan, korrelazioak eurak aldiberekoak diren neurrian, eurak espazio komun batean kokatzeko esleipenak, elkarrekiko funtzionamendua, eraldaketa uztartuak eta hierarkikoak. Xabier Arregi

Idazlearen idazkia edo testua da konta den bakarra sozialki, ez idazle horren **agertze** publikoak. Ana Urkiza

Egokia zen benetan, Aita dohatsuak, gorputzez hila, baina Kristorekin bizi zenak, bere **agertze** miragarriaz eta esku sakratuen ukitu leunaz, hiltzeraino zauritutako gizona sendatzea. Askoren artean

Irudiek sinbolo-balioa izan dute batez ere, erlijiozko sinboloena zehazkiago, ustez jainkoaren presentziaren **agertze** zuzeneko edo zeharbidezko baten bidez sakratutasunaren mundurako sarbidea ematen zutela. Josu Zabaleta

Azkenik, laugarren maila batean, eraketa diskurtsibo bat beste batekin ordezkatzen den planoa (edo positibotasun **agertze** edo desagertze hutsa). Xabier Arregi

Merkataritzako zikloak eguzkiaren irradiaktibitatean izandako fluktuazioen efektuak izan litezkeela, eguzki-orbanen **agertze** eta desagertzeek adierazten zuten bezala. Iñaki Mendiguren

Intimitatearen **agertze** bidean hein bat badela sinesten dutenetarikoa naiz. Itxaro Borda

Berak **agertze** eta mugatze-aukera definitzen ditu esaldiari zentzua ematen dionarentzat, proposizioari egia-balioa ematen dionarentzat. Xabier Arregi

Jendearen joan-etorriak edo autoen **agertze**-desagertzeak mantso-mantso gertatzen ziren nire baitan, eta haien irudiak xehetasun berriez horniturik azaltzen zitzaizkidan. Pedro Alberdi

2 *agertze aldera* agertzeko.

Idatzi, berriz, hitz egiten den bezala egiten zuen, naturalago **agertze aldera**. Joxerra Garzia

Egia esatera, nobela amaitutakoan, argibide okerrak direla iruditzen zait, izan ere argumentuari aitzakia hutsa erakargarria, landua, baina sostengu besterik ez irizten baitiot,

betiere idazlearen gogoetak **agertze aldera**. Berria - Kultura

Horregatik eta "egia garbi **agertze aldera"** eskatzen ditu barkamenak. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agertze aldera (3); **agertze bat** (6); **agertze bat egin** (3); **agertze edo** (3); **agertze eta** (5); **agertze hori** (4); **agertze horrek** (3)

---

agertzear *adlag* agertzeko zorian.

Mezenasaren irudia desagertutzat jotzen nuen, baina hara non infernuko sukalde honetan, gure aingeru goardakoa **agertzear** dagoen. Harkaitz Cano

-Baina... Iristear gaude, *mein führer*... Amerikarren ehiza-hegazkinak **agertzear** egon daitezke. Harkaitz Cano

Hau dio Jaunak: "Errespetatu zuzenbidea, egin justizia, iristear baitago nire salbamena, **agertzear** nire garaipena". Elizen arteko biblia

---

agertzearren *adlag* agertzeko.

Oso gutxitan garbitzen zituen eskuak osorik, hatzak busti baino ez zituen egiten, zauriak ingurukoei ez **agertzearren**. Askoren artean

Larru arraseko ihardukiak nola ekidin asmatzen hasi nintzen: erabat atipikoa eta apatikoa, beti sinpatikoa egonez noski, sozietatean **agertzearren** zergatik ez nuen nik ere temesta hartuko? Itxaro Borda

Lainezek burua mugitu du ulertzen duela **agertzearren**. Pello Lizarralde

Atzera lehengo tokian eseri eta, erretxindua ez **agertzearren** hain zuzen ere, luzaroan jardun nintzaion neure lanbideari buruz. Joxe Austin Arrieta

Frantziskok ez zion muzin egin eskaintzen zioten ohoreari, bere burua zeken ez **agertzearren** -bere gogoeta santuetan ere gogoan zuen kortesia-. Askoren artean

---

agertzeke *adlag* agertu gabe.

Eritasuna oraindik **agertzeke** egonik ere, horra haren froga biokimikoa. Juan Garzia

Tratatu honetan, munduaren sorreraz mintzatzean, kapitulu berezi bat eskainiko dizut, hor gai honi buruz halako frogabidea azalduz, eta mutakallim-n orok amesten duen helburura helduko naiz, horregatik izatearen natura ukatu gabe, eta Aristotelesek frogatu dituenetan ni haren aurka **agertzeke**. Xabier Kintana

---

agi ik **agidanean**; **agidanez**; **agidanetik**.

1 *agi danean* *(orobat **agidanean** eta **aidanean**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **agidanean** agertzen da)* dirudienez, antza denez.

Agi danean, beiragile bat erori zen, bigarren solairuan leiho bat aldatzen ari zela. Koro Navarro

Agi danean, Pistamiglio jaunak ez zituen gero indioilarrok saltzen: bertsiorik fidagarrienaren arabera, bere maitaleei ematen zien opari. Juan Garzia

Juan Carlos Guerrarena da, **agi danean**, soinuaz dugun lehenbiziko lekukotasuna. Iñigo Aranbarri

Etorkizuneko Tourrak erakusten zigun geroa geurea izan zitekela, baina, **agi danean**, oraindik ez da heldu Maria Bethânia abeslari bat da eta, **agi danean**, ez du lotsarik izaten bere kantaldietan poemaren bat tartekatzeko. Herriak kuku magiko eta azkarraren lana ikusi du horretan eta hortik, **agi danean**, kuku-sagar izen hori. Berria - Kirola

Halako batean, honek, **agi danean**, gerora hilko zuen aizto ukaldia eman zion. Iñigo Aranbarri

Etorkizuneko Tourrak erakusten zigun geroa geurea izan zitekela, baina, **agi danean**, oraindik ez da heldu Berceoren lehen hizkuntza euskara zelako, **agi danean**. Berria - Kirola

2 *agi danez* *(orobat **agidanez** eta **aidanez**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **agidanez** agertzen da)* agi danean.

"Agi danez, giza haragia bakarrik gustatzen zaio". Bernardo Atxaga

Indarrak biltzeko garaia dela azpimarratu zuen Arnaldo Otegik ere, "nahiz eta, **agi danez**, EAJk eta EAk beste bide bat hartuko dute. Berria - Euskal Herria

Galderak, **agi danez**, infinitoak lirateke, Jainkoaren bideak bezala. Karlos Linazasoro

Indarrak biltzeko garaia dela azpimarratu zuen Arnaldo Otegik ere, "nahiz eta, **agi danez**, EAJk eta EAk beste bide bat hartuko dute. Berria - Euskal Herria

Ez zen nigana etortzen, sentitzen baitzuen, **agi danez**, hiritarraren ezinegona; izan ere, gu kultur konbentzio eta seinaleen mundu batean bizi garenez, ez dakigu ziur nola jokatu animalia handi berbagabeekin. Xabier Olarra

Pizkundea maite zenuten gerra aurrean, eta oraindik ere bai **agi danez**. Juan Luis Zabala

Gezurra ematen du, baina **agidanez** kapeluzuriak sinetsi egin zuen gure kapitainaren esana. Koldo Izagirre

3 *agi denez* *(orobat **agidenez**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **agidanez** agertzen da)* dirudienez, antza denez.

Agi denez, Rojas ezizenaz sinatzen zuen FBIko agente NY-5075 hark, Bulegoarentzat ez ezik CIArentzat ere egiten zuen lan. Edorta Jimenez

Agi denez, bildumagilearena ez baita hartu eta utzi egin daitekeen ezaugarria. Hasier Etxeberria

Salmentak, **agi denez**, ondo ase ditu SEPI, Babcock eta ATB. Berria - Ekonomia

Gizonezkoak zauriak zituen eskumuturretan, **agi denez**, bere buruaz beste egiten saiatu zelako. Berria - Euskal Herria

Baina haiek, **agi denez**, beste hartarako baino jaterako gogo gehiago zuten eta ostikoka eta hozkaka hartu zuten, eta oso gutxian, biluzik zegoen, hedeak hautsiak eta gaineko aulkirik gabe. ez ahaztu, testuinguru horretan, txistu ttiki apal haiei ere poxpolin deitzen geniela, eta baita haritz txantxari (peonza) dantzariari ere, **agi denez**, Tolosa eta Goierri aldean Noraezean ari balitz bezala jardun zidan, inplikazioen bila **agi denez**. Patxi Ezkiaga

Bateko ohiturak eta besteko zuzenbide idatzia, bitarikoa zen Frantziako antolamendu juridikoa eta beharrena, **agi denez**, bi egitura horien arteko transakzioa. Andres Urrutia

5 *agi zenez* *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **agidanez** agertzen da)*

Lia Fail zen, irlandarren harri sakratua, **agi zenez** giza ahotsez hitz egiten zuena. Joanes Urkixo

"Terapiaren eragina nabaritzen hasia zen **agi zenez**. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agi danean (29); **agi danez** (14); **agi denez** (29)

---

agian *(ETCn **197.147** agerraldi)* **1** *adlag* zerbait gerta daitekeelako ustea adierazteko erabiltzen den hitza. ik**beharbada**; **akaso**; **apika**; **ausaz**.

Horregatik guztiagatik, denboraren hobaria da **agian** Mikel Lasa eta bion paseo gautar haren eszena aberastua. Anjel Lertxundi

Abandonu sentimenduak **agian** erematen gaitu gureak ez diren lurraldeetan ihes. Itxaro Borda

Aukera ederra! Bayburt-eko etorbide nagusitik desfilean pasatu berri diren militar dotoreak **agian** bat datoz euren gobernuaren erabakiarekin. Jon Arretxe

Agian egia da maitasuna bukatu egiten dela eta **agian** bukatu egin da zuen arteko maitasuna. Lourdes Oñederra

Baina **agian** ez da pozarena, eta bai gaitzespenarena, nekazarien begietako distira hori, pobreari ez zaiolakoan komeni aberatsaren klasea. Anjel Lertxundi

Eta **agian** ez zitzaien axola. Lutxo Egia

Eta **agian** gaur egun ezertarako balio ez duen zerbait da. Pako Aristi

Imajinatu edo ez, Txikiarenetik bi pausora dago antzeko hilarria, ez **agian** horren dotorea, "bietan jarrai" logotipoaren azpian bertako maizterraren datuak dakartzana. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina **agian** lurrera begira egon behar nuen. Koro Navarro

Bidaliko nizkizuke nire itzulpenak -erantsi zuen-, baina **agian** lana ematea litzateke. Bernardo Atxaga

Hobe zen **agian** horrela hiltzea. Fernando Rey

Damianek **agian** ez zuen nahi egiazki Lupe bere bizitzatik betiko irten zedin. Hasier Etxeberria

Zeren uste baitut, nahiz **agian** ez naizen batere zuzen, ez duzula guk gure garaian irakurtzen genuen adina irakurtzen. Pello Salaburu

Osaba Felipe izan zitekeen **agian** egokiena. Txillardegi

Baina **agian** txartzat hartu du isiltasuna, jarraian gaineratu baitu ez ninduela inolaz ere mindu gura, eta badakiela bere oharra ez dela beharrezkoa. Urtzi Urrutikoetxea

Euren esker txarrak lehortu zuen nire bihotza, euren maltzurkeriak desegin zituen nigan zeuden bertuterik kaltegarrienak, zeintzuetarako ni neu ere **agian** jaioa izango nintzen, zu bezala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Joango zela esan zuen Tellagorrik, eta, hala, hurrengo egunean, idazkari zaharrak esandakoak izango zuela **agian** garrantzirik pentsatuz, Martinekin azaldu zen haren etxean. Koro Navarro

Jonas Ramusen kontakizunak, horixe baita **agian** denetan xeheena, aztarnarik ere ez du ematen ez ikuskariaren handitasunaz, ez izugarriaz, ez behatzailea nahasten duen berritasun kutsu asaldagarriaz. Koro Navarro

Hala bada, sinaduraren bitartez **agian** omenaldia egin nahi dio Manuel Dominguez Desperdicios ezizenaz ezagutu zen toreatzaileari. Edorta Jimenez

Hemen geldiune bat egin beharrean nago, hipotesi **agian** zentzugabe bat planteatzeko. Iban Zaldua

2 (izenaren eta izenondoaren artean)

Gauez, batera eta bestera ibiltzen zen auto **agian** lapurtu bat hartuta, auskalo, izan ere, egunargiz lastategi batean gordeta eduki behar izaten zuen, eta, berak agindua zuen bezala, auto hartaz ezin zuen inork inoiz hitz egin. Pello Lizarralde

Haratago narama oraindik nere irudimen **agian** gehisko liluratuak. Patziku Perurena

Iragan urrun eta txiroaren aztarnak ziren, Bilbo inguruko gaztelera **agian** arlote baina edozelan hirikoago eta modernoaren aldean. Urtzi Urrutikoeetxea

[...] ahalik eta zehaztasun handienarekin finkatzea dagoeneko-hor dagoenaren sendotasun inplizitoari dagokiona, finkatzea, halaber, bereganatutako iritziarekiko fideltasun **agian** nahigabekoa, halabehar diskurtsiboen legea, eta sorketaren bizitasuna, ezberdintasun murriztezinaren gaineko jauzian. Xabier Arregi

3 (kideko beste partikulekin batera)

-Puntu horri buruz ezertxo ere ez dakit, baina S. jauna izendatu dut bitartekari, eta hark beharbada, **agian**, apika... Joan Mari Irigoien

Beharbada, noizbait, egunen batean, gau batean **agian**, dinamita hura behar izango zuten. Jon Maia

Agian bai, akaso ez, neuk ere ez dakit. Juan Luis Zabala

Berak gehien estimatzen zuena **agian**, edo bere bizitzaren justifikazioa beharbada: berari destaina egin zion mundukoa izatea ni. Joseba Urteaga

Lehen lerroak bakarrik... Lehen orrialdea **agian**... Beharbada... Ramuntxo Etxeberri

Beharbada horrela hobe da, azkenik irten zarelako kalera eta batek daki, **agian**, akaso, oraindik posibilitateren bat legokeelako Eñaut ikusteko. Sonia Gonzalez

Agian etxean ere egin izan dizute euskaraz, edo ez, beharbada. Pello Salaburu

Irribarre urduria egin zioten elkarri: Alazne, **agian**, estu zegoelako; Imanol, beharbada, zerbait gertatzen zela edo gerta zitekeela sumatzen hasia zelako. Fernando Morillo

1951n, **agian**; edo 1957an edo 1958an, beharbada. Edorta Jimenez

• **4** *interj* nahia edo itxaropena adierazten duen partikula. ik **oxala**; **baldinba**; **baldinbaitere**.

Mahaia paratzeko astia izanen dute **agian**! Aingeru Epaltza

Hemendik laster, **agian**, aterako naiz berriz Kasanen erreinura joateko. Aurelia Arkotxa

Mundu zabal honetako edozein zulotan **agian** herioak harrapatu du! Itxaro Borda

Agian, koroa eramatean beste izen bat erabiliko du! Agustin Otsoa

Agian! Zeren, neure honetan, Iparra galduko dut. Txillardegi

Euskal Herriko itzulia egin dezan, **agian**! Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

agian ainitz (12); **agian are** (8); **agian aro** (10); **agian arrazoi** (20); **agian arrazoia** (10); **agian ba** (24); **agian bai** (100); **agian baita** (10); **agian bera** (11); **agian berak** (11); **agian bere** (35); **agian beren** (8); **agian bertze** (9); **agian beste** (55); **agian beti** (8); **agian bi** (20); **agian bihar** (13); **agian denak** (8); **agian denbora** (13); **agian egia** (14); **agian egin** (8); **agian egoera** (8); **agian egun** (16); **agian egunen** (11); **agian egunen batean** (10); **agian esan** (10); **agian eta** (13); **agian euskal** (9); **agian ez** (383); **agian ez da** (52); **agian ez dira** (9); **agian ez du** (24); **agian ez gara** (9); **agian ez zen** (24); **agian ezingo** (15); **agian ezingo du** (8); **agian gaur** (14); **agian gauza** (10); **agian gehiago** (16); **agian gehiegi** (16); **agian gure** (30); **agian hain** (12); **agian hala** (9); **agian haren** (8); **agian helduden** (20); **agian helduden urte** (12); **agian hemen** (9); **agian hiru** (8); **agian hobe** (28); **agian hobe izango** (10); **agian hori** (22); **agian horregatik** (72); **agian horrek** (9); **agian horrela** (9); **agian horren** (9); **agian horrexegatik** (22); **agian inoiz** (9); **agian izan** (11); **agian izanen** (8); **agian izango** (14); **agian jende** (8); **agian laster** (14); **agian luzaz** (44); **agian ni** (12); **agian nire** (24); **agian noizbait** (9); **agian norbaitek** (8); **agian orain** (13); **agian oraindik** (15); **agian oraino** (8); **agian oso** (8); **agian segituko** (9); **agian une** (9); **agian urte** (9); **agian zerbait** (18); **agian zuk** (14); **agian zure** (16); **bai agian** (20); **baina agian** (107); **baina agian ez** (12); **balitz agian** (9); **bat agian** (42); **batean agian** (15); **batek agian** (10); **batzuk agian** (11); **da agian** (94); **da eta agian** (8); **dio agian** (8); **dira agian** (21); **du agian** (34); **dugu agian** (8); **dut agian** (14); **dute agian** (16); **duzu agian** (17); **edo agian** (186); **edo agian bai** (13); **edo agian ez** (16); **edota agian** (12); **ere agian** (28); **ere bai agian** (14); **eta agian** (510); **eta agian beste** (8); **eta agian ez** (30); **eta agian helduden** (9); **eta agian horregatik** (17); **eta agian luzaz** (19); **ez agian** (17); **ez da agian** (10); **gabe agian** (11); **gehiago agian** (8); **gero agian** (16); **horregatik agian** (13); **izan zen agian** (10); **izango da agian** (25); **izango zen agian** (11); **litzateke agian** (11); **nahiz eta agian** (8); **nuen agian** (13); **txikiegia agian** (23); **zaio agian** (8); **zelako agian** (9); **zen agian** (58); **zion agian** (11); **ziren agian** (11); **zuen agian** (43); **zuten agian** (13)

---

agiantza *iz ipar* desira, gehienetan ona.

Hirugerrena, **agiantza** bat: agian egiazki aberri-egüna dateala, eta ez hegoaldean bezalako alderdi-egüna! Herria

Gure estimu guziarekin, Baigorrin ukanen duela beren dohain eta ahal beteen zabaltzeko denbora, hau da gure **agiantza** bihotz haundiko apez hunentzat. Herria

Partitzean denen **agiantza** egun horren erreberritzea heldu den urtean, hor zirenek eta jiten ahal ez zirenek. Herria

Eta denek **agiantza** bera Manex lantegiari: ainitz urtez! Herria

Zoriontsu izanen direlako **agiantzarekin**, gure goresmenak herritar bikote huni, eta goraintziak hauien familiakoeri!! Herria

Herriko etxearen urte berriko **agiantzak**. Herria

Urte berriaren **agiantzak** betiko goxotasunean egin dira Izpurako Luro xaharretxe-eritegian berriki. Herria

Iragan larunbatean 25 ean, aratsaldeko 6 orenetan, bilgune salan, auzapezak bere kontseiluarekin eskaini ditu **agiantzak** herritarreri. Herria

Egun goxo eta alai baten **agiantzak** guzieri. Herria

Bizi zoriontsu baten **agiantzak** espos berrieri eta goresmenak. Herria

Ene **agiantzak** nori eman ez dakit eta ez dut. Marzel Etxehandi

Jakin beza, bada, biaia ona egiteko ene **agiantzak** bidelagun dituztela berak eta haren liburu honek. Aurelia Arkotxa

Zorionak eta **agiantza** hoberenak espos berrieri eta hauen etxekoeri. Herria

Goresmenak aitameri eta **agiantza** zoriontsuenak sortu berriari. Herria

Auzapez eta hautetsien **agiantzak**. Herria

Gure **agiantza** beroenak dira guri Aliatuek bidea motz dezaguten geltokiratekoan! Michel Oronoz

Gureganik, doluminekin, familiak har dezala gero hobearen **agiantza**. Herria

Goresmen eta zorion **agiantzak** hari. Herria

Goresmen eta zorion **agiantza** hoberenak bikote gazteari. Herria

Hiri elkargoko urte berri **agiantzetan** Didier Borotrak erran du urrats juridikoek behar luketela aurten ekarri fruitu, eta Ruwel-eko eremuak hiri erkidegoaren eskuetara behar litezkeela betikotz itzuli. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agiantza beroenak (19); **agiantza beroenak onhar** (3); **agiantza bilkuran** (3); **agiantza eta** (3); **agiantza hoberenak** (48); **agiantza hoberenak eskaintzen** (3); **agiantza hoberenak espos** (4); **agiantza hoberenak haur** (4); **agiantza hoberenak sortu** (10); **agiantza onak** (3); **agiantza zoriontsuenak** (3); **agiantza zoriontsuenak sortu** (3); **agiantzak diozkategu** (5); **agiantzak eskaini** (3); **agiantzak eskaini ditu** (3); **agiantzak espos** (10); **agiantzak espos berrieri** (10); **agiantzak eta** (4); **agiantzak haur** (12); **agiantzak haur sortu** (12); **agiantzak iragan** (4); **agiantzak iragan larunbatean** (3); **agiantzak joanden** (4); **agiantzarik hoberenak** (3); **agiantzen kari** (4); **agiantzen karietara** (5); **aitameri eta agiantza** (7); **auzapezaren agiantzak** (6); **baten agiantzak** (33); **baten agiantzak diozkategu** (5); **baten agiantzak espos** (7); **baten agiantzak haur** (11); **bere agiantza** (4); **bere agiantzak** (8); **berriko agiantzak** (6); **da gure agiantza** (5); **direlako agiantzarekin** (3); **ditu bere agiantzak** (5); **ene agiantzak** (3); **eta agiantza** (27); **eta agiantza beroenak** (5); **eta agiantza hoberenak** (17); **eta agiantza zoriontsuenak** (3); **eta zorionezko agiantzak** (3); **goresmenak eta agiantza** (5); **gure agiantza** (22); **gure agiantza beroenak** (5); **gure agiantza hoberenak** (12); **gure agiantzak** (4); **izanen direlako agiantzarekin** (3); **urte berriko agiantzak** (6); **urteko agiantzen** (5); **zorion agiantza** (5); **zorion agiantza beroenak** (3); **zorionezko agiantza** (3); **zorionezko agiantzak** (7); **zoriontsu baten agiantzak** (28)

---

agiantzatu, agiantza(tu), agiantzatzen du *ad ipar* desiratu.

Annus utilis, hau da Jakes Haundiaren aurtengo leloa, Frantsesei lehenik **agiantzatu** duena, lehen minixtroari gero, errepikatzeko parada ederra duela urtarril guzian. Herria

2004 garren urterako, urte zoriontsu bat **agiantzatu** ondoan, GENIN jaunak aipatu ditu iragan urtean eginak izan diren obrak. Herria

---

agidanean *(orobat **agi danean**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **agidanean** agertzen da) adlag* dirudienez, antza denez. ik **agidanez**; **agidanetik**; **agi**.

Garrantzitsuenetako bat psikologikoa da, baina, **agidanean**, eguraldiak ere badu zerikusirik Berria - Kirola

Gehiegi zirela iruditzen, **agidanean**! J.M. Olaizola "Txiliku"

Jarreren kontu hori zela-eta, Adan eta Lilith ez ziren konpondu, **agidanean**, eta ez zuten seme-alabarik izan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gure adinekoa, edo nagusiagoa, **agidanean**. Pedro Alberdi

Joaten ginen lekura joaten ginela, txakur bat ikusteaz batera, gogor-gogor jartzen zen eta norbaiten eskua - nirea edo amarena, **agidanean** - bilatzen zuen lehenbailehen. Pedro Alberdi

Agidanean, drosofilaren kide hurbilen bat zen. Juan Garzia

---

agidanetik *adlag* dirudienez, antza denez. ik **agidanean**; **agidanez**; **agi**.

Molloyren eskualdea eskualde ez oso zabal bat zen, eta hala ere Molloyk, **agidanetik**, inoiz ez zituen haren muga administratiboak gainditu -izan debekatu ziotelako, izan ez zuelako gogorik, izan berez, naturalki, izaten diren halabehar harrigarriengatik. Pablo Sastre

---

agidanez *(orobat **agi danez**; **agi denez** eta **agi zenez**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **agidanez** agertzen da) adlag* dirudienez, antza denez. ik **agidanean**; **agidanetik**; **agi**.

Agidanez, deitura aldatzerainoko tarte bat zabaldu zuan ama eta aitaren artean. Jokin Muñoz

Muker egin zion neskameak, etxeko alaba **agidanez**, tabernariaren antza bekainetan. Koldo Izagirre

Agidanez, halaxe gertatu ohi da munduan; **agidanez**, Txitxikovak ere poeta bihur daitezke lipar batez. Jose Morales

Agidanez, Rittenbach andre zaharrak bere ekintza txikia egin zuen, zeinaren bidez Jainkoari lagundu nahi izan zion... Pablo Sastre

Eta euskararen galbaheak zulo zabalegiak ditu, **agidanez**, Loiolako lohietan urrearen xerka ibiltzeko Berria - Kultura

Agidanez, idazle batzuk kezkatu antzean dabiltza bertsomania dela-eta, bertsolaritzak eta bertsolariek hedabideetan hartzen duen lekuaren karietara.. Berria - Kultura

Hirugarrenean **agidanez**? Itxaropen hori dute, behintzat. Berria - Harian

Agidanez, marmolezko esparrua trenbide goratu baten zatiaren azpi-azpian zegoen kokatuta. Oskar Arana

Agidanez, jendeak sinesgarriagotzat hartzen ditu argazkiak ilustrazioak baino. Txema Ramirez de la Piscina

Agidanez, ezin du nire hitz adoretsurik gabe bizi. Karlos Linazasoro

Bidenabar pentsatu zuen ezen, **agidanez**, horregatik ari zitzaiola gertatzen hain nekeza bere beste pertsonaia hari, hiztegigileari, Hiztegi subjektiboa-rekin aurrera egitea, eta mantsotasunaren subjektibotasunaren kontu hura, azken batean, ezintasuna ezkutatzeko aitzakia baino ez zuela. Imanol Zurutuza

Lapurren beldur ziren, **agidanez**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Su haren garrak haizez haize heldu ziren sinbolotik errealitatera, galerna hasi zuen jotzen aldiro gure bazterrean, gurpil zulatzeak zenbait autotan, eskela itxurako paperak salatarien izen-deiturekin, karabineroen zodiac gris berria desagertzea, **agidanez** beheko olatuak troinua askatuta. Koldo Izagirre

---

agilando *(corpusean ez da **aginaldo** agertzen; ETCn **agilando 3** agerraldi, **aginaldo 12** agerraldi) iz* gabonsaria.

Antzina, emakumeek jasotzen zituzten **agilandoak** gizonengandik. Pello Zabala

---

agilofingo *iz* Bavariako dinastia batekoa.

Dukearentzako konposizioa **agilofingoentzat** ezarritakoa baino heren bat handiagoa zen. Iñaki Iñurrieta

---

aginagatar *(orobat **aginar**) izond/iz* Aginagakoa.

Ondokoak dira 14 arraunlari horiek: Iñaki Errasti **aginagatarra**, Enrique Lopez, Israel Bolado, Vasile Matei, Jose Angel Vazquez Txanpan, Ionel Sorin, Jose Antonio Cuero, Fernando Rua, Mauricio Monteserin, Luis Pazos, Roberto Perez, Jose Carlos Popi Gonzalez santurtziarra, Enrique Vitoria eta Jose Antonio Acebal. Berria - Kirola

Ikustekoa izan zen apustu hau, goiko bueltan **aginarrak** bazterretik jo zuen eta aurrea hartu ere bai, baina Piok, zabalxeagotik hartuta, ez zuen abiada galdu eta lehentxeago iritsi zen gora. Xabier Etxabe

---

aginar ik **aginagatar**.

---

aginbide ik **aginpide**.

agindari ik **agintari**.

---

agindu *(ETCn **101.432** agerraldi)* , agin(du), agintzen **1** du *ad* norbaitek, duen eskuaz baliaturik, egin behar duena norbaiti esan edo adierazi; hitzeman. ik **manatu**.

Berari ez, beti bezala bizi baitzen, ohizko moduan, bere txilaba jantziz eta Koranak **agindutakoa** zintzo-zintzo beteaz. Bernardo Atxaga

Jolas polit bat irakatsi behar didala **agindu** dit. Iban Zaldua

Aljerian erori zena aipatzen genuen artetan: gizon lerden eta luzea, **agintzeko** egina. Piarres Aintziart

-Zurekin joango naiz - **agindu** zuen hirugarrenak. Koro Navarro

Badaki esparru hura ez dela berea eta han **agintzeko** eskubiderik ez duela. Gotzon Garate

-Emaion bularra! - **agindu** dio umearen aitak, Basajaun ikaragarriak, bekainak arkutuz. Anjel Lertxundi

Ez bakarrik legeak hala **agintzen** duelako, batez ere EAEn dugun araudi nagusiak hala **agintzen** duelako, eta EHUko estatutuek ere halaxe **agintzen** dutelako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Potroetaraino nago irakasleek **agintzen** dizkiguten txapak irakurtzen eta zure liburua guztiz desberdina da, deskojonoa! Jon Arretxe

Aita Sandor deitzen duk eta hemen berak **agintzen** dik. Eskarne Mujika

Gu iritsi ginen lehen egunean, gela bakarreko etxe bat eman ziguten, Barzani jeneralak berak **aginduta** . Juan Kruz Igerabide

Bidaiatu behar zenuela esan zenidan gero -oi, nola gorrotatzen nituen bidaia horiek gaztetxoa nintzenetik!- eta itzuli bezain laster dei egingo zenidala **agindu** ere. Eduardo Matauko

Ez dago inolako printzipio hierarkikorik gauza bakoitzari dagokion lekua **agintzen** duenik. Piarres Xarriton

Aldi batez kaputxarekin ibiltzeko **agindu** omen zioten sendagileek, albistearen testuan azaltzen zenez, azal berriak ez zukeelako onartuko eguzki-izpirik. Iñaki Iñurrieta

Gaur egungo errutinak **agintzen** duenaren aurka, helendarren lehen testuak ezin baitzaizkio erraz egokitu urliari edo sandiari. Askoren artean

Apirilaren bata da, eta ez daki handik urtebetera Entzutegi Nazionaleko epaileak ahozko epaiketaren hasiera **aginduko** duela hamalau akusatuen aurka. Pako Aristi

Xabiertxo letrazkoak inspiratu zuen Xabier haragizkoaren historiak, ordea, aurrera darraio halabeharrak **agindutakoari** . Anjel Lertxundi

Motxilei ere erreparatu die, baina ez die zabaltzeko **agindu** . Anjel Lertxundi

Bularren gainean ereinotz profetikozko girlanda paratu, arimen migrazioari buruzko bertso ezezagun batzuk kantatu, eta hiru aldiz **agindu** zion altxatu eta ibiltzeko. Juan Garzia

Uste izan nuen esku haiek **agintzen** ari zitzaizkidala ez egiteko halakorik, **agintzen** ari zitzaizkidala hobeto pentsatzeko, ez hartzeko arrautza haiek, ez hartzeko nirea ez zen gauzarik. Mirentxu Larrañaga

Bilobak erdi kezkaturik erdi errespetuz entzuten dio, lurrean jesarrita, indio posturan, maistrak txikiak zirenean **agintzen** zien bezala. Eider Rodriguez

Egunen batean usain hori destilatzera iritsiko naizela **agindu** diot neure buruari, eta lurrin gozoa asmatuko dudala "Txabolako Ura" izenarekin. Jesus Mari Mendizabal

Ondorioz, bertsoaren eskuinaldeak **agintzen** digu, eta esango dugu, errima-sorta hortako hitzek uzten diguten huraxe soilik. Andoni Egaña

Ez ziren nobleak, burgesak baizik, herri-kontseiluan **agintzen** zutenak. Askoren artean

Igarkizunetan ari zen beti, azterketak egiten zizkidala iruditzen zitzaidan niri behintzat, eta sarritan **agindu** nion txakurraren salara. Koldo Izagirre

-Jarri burruntzalikada pare bat! - **agindu** zion aitak jarraian, bere argudioak emanda. Joan Mari Irigoien

Eta orain kikera bat te hartuko dut, eta **agindu** zenizkidan pepino-ogitarteko bikain horietako bat. Antton Olano

Injekzio batzuk **agindu** zizkidan, hala ere, hilekoa etorrarazteko, baina iruditu zitzaidan berak ere ez zuela gehiegi sinisten haien eraginkortasunean. Joseba Urteaga

Besterik gabe, herabe, Mixel nintzela esan nion, pareko auzokidea, eta **agindutako** kafe hura hartu nahi ote zuen. Patxi Zubizarreta

Autotik ateratzeko **agindu** zioten. Xabier Olarra

Ezin dizut ezer **agindu** , eta ezin gehiago esan. Lander Garro

Eskuak estutu nizkion halaxe egingo nuen seinale, hiltzera baitzegoen bera, eta ni, berriz, zernahi **agintzeko** aldartean. Juan Garzia

Izan ere, zer mundu litzateke hau, guztiak **agintzen** jarriko bagina? Anarkia, don Kosme, anarkia!!! Joan Mari Irigoien

Kortesiak **agintzen** zielako ere, nagusia ikusi nahi zuten. Joseba Urteaga

Juliak ezin zuen eraman egongelatik alde egin behar izatea, Eusebiok andre frantsesarekin bakarrik uzteko **agintzen** zionean. Alberto Barandiaren

Ikuskizun hura aipatu nion orduantxe, eta isiltzeko **agindu** zidan hark, ezker besoa falta zuela, eta ezintasun hark zeharo mingosten ziola aldartea. Karlos Linazasoro

Emakumeak eskerrak eman zizkidan, eta **agindu** zidan errezatu egingo ziela zeruko saindu guztiei nire arimaren alde. Javi Cillero

Agudo ibiltzeko **agindu** zigun artzainak, eguzkia ihartu eginen zela - bazekien hizketan agure hark - karabineroak iritsi orduko. Koldo Izagirre

Ontziak Paimbœufen egiten zuen geldialdiari esker harrapatu zuen aitak, eta Vernek bidaiak ametsetan baino ez zituela egingo **agindu** behar izan zuen. Karlos Zabala

Venezuela da munduko leku bakarra poliziak gauaz semaforoak gorrian pasatzeko **agintzen** dizuna, malandroek (gaizkileek) semaforo gorriaren geldiunea aprobetxatzen baitute autoak lapurtzeko. Pako Aristi

Komisarioak isiltzeko **agindu** zien biei eta keinu bat egin zion lehen ilaran zegoen kapitainari. Aritz Gorrotxategi

Neurriko izarak **agindu** behar izan ditut eginak aurkitu nituenetatik bat berak ere balio ez dioelako. Ramon Etxezarreta

Egiaz zuk **agindurik** egin al dute hori? Guri, zeure zerbitzarioi, ez diguzu esan nor izanen den zure hurrengo erregea. Elizen arteko biblia

Margaritak hasieran ez zuen nahi izan; baina gero ongi iritzi zion, armairuak eta kutxak handik kentzeko **agindu** zuen, eta hantxe kokatu zen Andres. Josu Zabaleta

Espaloirik gabeko bideetan, oinezkoak diosala zor dio parean edo inguruan egokitzen zaion oinezkoari; gizalegeak hala **agintzen** du. Juan Luis Zabala

Zeruarren **agintzen** diat, mintza hadi. Juan Garzia

-Ea, har ezazu! - **agindu** zion andereñoak. Anton Garikano

Ilargiak **agindu** izan du zenbait kulturetan, hala aspaldiko zaharrenetan, ekialdeko nahiz mendebaleko. Pello Zabala

Soldaduek ernatzeko **agintzean** , presoak bulkatzen ziren eta batzuk erortzen ere. Eneko Bidegain

Bazeuzkaten euren laborategiak, eta Artearen sekretuak erakutsiko zizkidatela **agintzen** zidaten... Xabier Aranburu

-Ixo! - **agindu** zigun aitak. Jon Muñoz

Agindu zioten targeta erdietsi zuen, estatubatuarren inplikazioa gerra hartan. Txema Ramirez de la Piscina

-Bete **agindutakoa** ! Jon Muñoz

Maisuk hala **agindu** eta haietako batek bizkarra ireki zidaan, eta itxi zenean zuhaitza geratu zuan. Anton Garikano

2 (era burutua izen gisa) *iz* inori agintzen edo manatzen zaion gauza. ik**manu**.

Gorde Moisesen arauetan idatziak dauden lege, **agindu** , erabaki eta burubideak. Elizen arteko biblia

Ezkutaria bidali zuen Taneborg-era, **agindu** batekin: agurtzeko Gwain zalduna eta Ginebra erregina, baina ez esateko nola eta non zegoen bera. Juan Kruz Igerabide

Deitu zion Silvestre izeneko anaiari, xalotasun garbiko Jainkoaren gizona zenari, eta **agindu** hau eman zion: [...]. Askoren artean

Izan ere, **agindu** hau eman dit Jaunak: "Ez jan ogirik, ez edan urik, ez itzuli lehen joan zaren bidetik". Elizen arteko biblia

Halako **agindu** batek, nik uste, Japoniako legeetan baino ez du parekorik. Iñaki Iñurrieta

Agindu bera eman zien bigarrenari eta hirugarrenari, eta abeltaldeak zeramatzaten guztiei: [...]. Jose Antonio Mujika

Anaia maite, **agindu** hau hartu dut, baina aukeratzeak beldurra ematen dit eta ez dakit zer egin. Askoren artean

Pertsiako errege Zirok hitzez eta idatziz bere erreinu osoan **agindu** hau zabaldu zuen: [...]. Elizen arteko biblia

Orduan, Jerikoko erregeak **agindu** hau bidali zion Rahabi: [...]. Jose Antonio Mujika

Hala ere, ez zituen hilarazi hiltzaile haien semeak, Moisesen legean Jaunaren **agindu** hau baitago idatzia: "Ez hil gurasoak seme-alaben erruengatik, ez eta seme-alabak ere gurasoen erruengatik. Nor bere erruengatik hilko da". Elizen arteko biblia

" **Agindu** hauek guztiak, Jaunak Moisesi adieraziak eta haren bidez zuei emanak, indarrean daude aldarrikatu zirenetik. Elizen arteko biblia

Erreka-bazterrera heltzean, bertan jarri zituen Judasek gudarosteko ofizialak, **agindu** honekin: "Ez utzi inori oihal-etxolak ezartzen. Elizen arteko biblia

Jaunak geure Jainkoak zuzentzat hartuko gaitu, **agindu** guztiok betetzen saiatzen bagara. Elizen arteko biblia

Priore nagusi bat dute buru eta haren **agindu** eta araudiak obeditzen dituzte begirunez menpeko prioreek eta Ordenako beste anaia guztiek. Askoren artean

Paristarrek, zikinzaleak itxuraz, gogor egin zioten aurka, **agindu** haiek gizabanakoaren askatasunaren aurkakoak zirela iritzita. J.M. Olaizola "Txiliku"

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Horregatik Kissoff jeneralak ez zion **agindu** idatzirik eman. Karlos Zabala

Izan gogoan hark egindako miragarriak, haren egintza harrigarriak eta **agindu** zuzenak. Elizen arteko biblia

Gero eta garbiago ageri zitzaigun, beste alde batetik, jauregitik ez irteteko **agindu** hertsia jaso genuenez geroztik, han umezurtz gu utziz, Oskotz komandantea "norabait" joana zela tarrapataka. Txillardegi

Kalipsori **agindu** zorrotza bidali zion, uzteko Ulisesi uhartetik irteten, haren patua etxera itzultzea zela eta. Juan Kruz Igerabide

Debozio apalez goaz, bada, **agindu** santu horiek obeditzera. Askoren artean

Ontziburuak **agindu** zehatzak eman zituen, gure ontzia beste bien arteko tartean sar genezan. Edorta Jimenez

Harrapatuegi zeukan perfekzioak, **agindu** gorenen hauste ttipiena ere gogoan hartzeko. Joxan Elosegi

Gogaitasunaren pisu astuna, bai; porrotaren **agindu** ikaragarria, bai: joan hadi hemendik; ezinaren nekea ere bai; baina ez inoiz orain sentitzen duen arintasun harrigarria; sentimen gozoagorik azken hilabeteotan! Pako Aristi

Tinkotasuna deitzen dut, bakoitza, Arrazoiaren **agindu** soilari jarraikiz, bere izana atxikitzeko, lehiarazten duen Desira. Piarres Xarriton

-Bai, eta **agindu** zailak askotan bete ditu egoki. Karlos Zabala

Hemen ikusi dugunez, Ponthieuko kondeak kontra egin zion bere jaurerrian **agindu** judizial berri bat betetzeari. Iñaki Iñurrieta

Eginbide horretan errudun dira bai lehen biografoa, Zelano, **agindu** ofizialez ari dena, eta bai Bonabentura, Ordenaren bigarren fundatzaileteat jo izan den Ministro jeneral jakintsua. Askoren artean

Agindu nagusia. Elizen arteko biblia

Lan ezazu lurra, esana diote gizakiari, gogor ekin lanari... hori bai **agindu** zuhurra! Jose Morales

Arrazoiaren **agindu** propioaren arabera bizitzeko gisan. Piarres Xarriton

4 (hitz elkartuetan)

Agindu-keinu batez billetea galdegin zidan. Aingeru Epaltza

Orduan entzun nuen haren ahotsa, jaunaren ahotsa, era isilez, baina **agindu** doinuz, esaten: [...]. Juan Martin Elexpuru

Galdera ikurra jarri diogun arren, benetan **agindu** esaldia izan zen. Unai Iturriaga

· Erreinuko ministrari, eskualdeburu, kontseilari eta gobernariek aho batez eskatzen dizute errege-**agindu** hau eman eta aldarrika dezazun: [...]. Elizen arteko biblia

5 du *ad* hitzeman, promestu.

Historia bat kontatuko nizuela **agindu** dizuet, eta bete egingo dut nire promesa. Pako Aristi

Pentsatuko nuela **agindu** nion Puertari, baina luze pentsatu gabe erabaki nuen ezetz. Xabier Mendiguren Elizegi

Agindu amari lo geratuko zarela. Lopez de Arana

Badakit ikerketa ero hau guztia utzi egingo nuela **agindu** nizula. Fernando Morillo

Nire eskaerak harritu egin zuen (ez nion azalpen handirik eman), baina zinta entzungo zuela **agindu** zidan. Iban Zaldua

Informazioa biltzeko ahaleginak egingo zituela **agindu** zidan. Iban Zaldua

-Artista batzuen erretratuak ekarriko nizkiola **agindu** nion -azaldu dio Lainezek Juanari. Pello Lizarralde

Lehenbailehen hil zezatela **agindu** zien. Elizen arteko biblia

Atzerrira igorriko dituztela **agindu** eta igorri ez. Gotzon Garate

-Harry Potterrek eskolara ez dela itzuliko **agindu** behar dit. Iñaki Mendiguren

Lotsa ere ematen dit, ez dudala ezer ezkutatuko **agindu** dudan honetan, orduko eszena haiek berritzeak. Anjel Lertxundi

Agindu nion don Alejandrok gonbidatuko zuela Biltzarraren partaide izatera. Juan Garzia

Eta nik neuk ere doktoregoa ahalik eta azkarrenik burutratzea **agindu** nion 1978an. Txillardegi

10.000 dolar emango zizkiola **agindu** zion. Gotzon Garate

Axenariok katilukada esne baino ez dio **agindu**. Itziar Otegi

Aitari zerbitzu-denbora bururaino beteko nuela **agindu** nioan. Xabier Olarra

Emakumeak eskerrak eman zizkidan, eta **agindu** zidan errezatu egingo ziela zeruko saindu guztiei nire arimaren alde. Javi Cillero

Mahai berri bat bidaliko geniola **agindu** diot. Juan Garzia

Luis Estherrekin elkar hartuta ei dabil, eta Rubenen denda libre izango zuela **agindu** zion, baina baliabide guztiak jarrita ere, kluk egin du. Patxi Zubizarreta

Lehenengo soldatarekin koltxoia erosiko nuela **agindu** nion neure buruari. Bernardo Atxaga

Ez dut, ordea, hitz bakar bat ere ukituko edo aldatuko, hala **agindu** nion-eta neure buruari AK hauek idazten hasi nintzenean. Anjel Lertxundi

Togasek 3.000 **agindu** zizkidan, baina nire burmuinetatik eta Ttipirenean hartutako ohar urrietatik gehiagorik erauzterik ez nuen. Aingeru Epaltza

Weathersek beste trago bat behintzat harrarazi zien beraren kontura eta **agindu** zien geroago Poolberg Streeteko Mulligan's-en ikusiko zituela. Irene Aldasoro

Ez nian atzean zorrik txikiena ere utzi, eta ez nioan inori gero bete ez nuen ezer **agindu**. Xabier Olarra

Hala **agintzen** dio, baina betearazi ezin den agintzaria da hori. Oskar Arana

6 *agertzeko agindu*

Hilaren 25ean Euzkadi'ko Jaurlaritzak Baionan duen Ordezkaritzakoek eta horren prentsa eta informazio zerbitzuek, Euzkadi Buru Batzarrekoek eta ELA/STVren Nazio Batzordeko kideek, Robles Arangizek izan ezik, eskualdeko Gendarmeriera **agertzeko agindua** hartu dute. Edorta Jimenez

Azken horri pasaportea kendu eta hamabostero komisarian **agertzeko agindua** eman zioten. Berria - Euskal Herria

Egun arte eman duen elkarrizketa bakarrean esan duenez, argazkietan **agertzeko agindua** jaso zuen eta irudiok "helburu psikologikoekin» erabiltzeko egin zituzten, hau da, "presoak mintzarazteko». Berria - Mundua

Epailearen aurretik pasa gabe utzi beharko gintuzten libre baina, hori gure atxiloketaren bidegabekeria ozenki aitortzea litzatekeenez, fidantza txiki bat jarri eta baldintzapean askatu gintuzten, hamabostean behin gure herriko ertzain-etxean sinatzera **agertzeko aginduarekin**. Xabier Mendiguren Elizegi

7 *agindu emaile*

Askatasunari loturiko "oinarri filosofiko» hori bat dator, Zapiainek dioenez, Txillardegiren sei eleberrietako hainbat ezaugarrirekin: "Eleberri guztiak abiarazten ditu indarrean dagoen giro bati protagonistak eginiko ukoak, pasiboki jasoriko egoerari ezetzak: adiskide taldeari Leturiak; lantokiko **agindu-emaileari** Peruk; ezkon bizitza gezurtiari Elsak; irudimenezko eternitateari Haizeaz bestaldetik-eko protagonistak; sorleku arroztu eta zafratuari Exkixuk; eta eraso politiko-militarrari Putzuk. Berria - Kultura

8 *agindutako (**611** agerraldi, **70** liburu eta **268** artikulutan) izlag*

Sendagileak **agindutako** ezki-urak ez zion deus egiten. Anjel Lertxundi

Ez kezkatu, beteko dut **agindutakoa**. Bernardo Atxaga

Leku-aldaketa legez egin daitekek, auzitegiek **agindutakoa** betez. Jose Morales

Oso gazterik sartua zen Ordenan, eta nekez eraman ahal zuen Erregelak **agindutako** baraua. Askoren artean

Kilpatrick konspiratzailea izan zen, isilpeko konspiratzaile-buru loriosa; Moisesen antzera, zeinak **agindutako** lurra Moab-eko lurretik ikusi eta hartan oinik ezartzerik ez baitzuen izan Izan ere, **agindutako** hipermerkatua eraiki beharrean pabiloiak eta lantokiak eraiki baitziren hemen. Juan Garzia

Soinujoleak kemen osoz ekin zion guk **agindutako** piezari, *Sieg Heil!* ,1336an, Brabanteko dukeari bere aitak **agindutako** exonerazioa eskatu zion Liejako San Agustin elizak. Anjel Lertxundi

Norbaitek ez zuen batere gogorik Ttipik **agindutako** txostenaren bigarren parteak argia ikusteko. Aingeru Epaltza

Nik **agindutako** guztia betetzen baduzu, nire lege eta aginduak gordez, ene zerbitzari Davidek egin zuen bezala, zeurekin izango nauzu. Elizen arteko biblia

Agindutako orduan azaldu zen Santos. Josu Landa

ATBk oraindik ez du abalik aurkeztu, eta ez ditu **agindutako** 17 milioi euroak jarri Babcock baliabide teknologikoz hornitzeko. Berria - Ekonomia

Juliorekin nengoen orduetan, maisuak kasurik ere ez baitzidan egiten, Adelak ipinitako ariketak egin eta berak **agindutako** ikasgaiak ikasten nituen. Juan Kruz Igerabide

Sinn Feinek **agindutakoa** bete zuen, baita IRAk ere. Berria - Mundua

Berari ez, beti bezala bizi baitzen, ohizko moduan, bere txilaba jantziz eta Koranak **agindutakoa** zintzo-zintzo beteaz. Bernardo Atxaga

Ez dio muzinik egin inolako lani, ez eta ukorik inongo nekeri, **agindutakoa** bete ahal izateko. Askoren artean

Stockholmeko Itunean **agindutakoa** neurri zehatz bihurtu behar dira orain. Berria - Gaiak

-Patricia, bete ezan **agindutakoa** , ez hadi zakarra izan. Koro Navarro

Egizue **agindutakoa** ! Agustin Otsoa

Gobernuak existitu aurretik ez zen existitzen bidezkoa eta bidegabea; bere izaera **agindutakoarekin** lotuta baitago. Esteban Antxustegi

Gu, ordea, **agindutako** zeru-lur berrien zain gaude. Elizen arteko biblia

Anai Jakobo hilobiratu zutenean, anai Joan Massako komentura itzuli zen, eta hark **agindutakoaren** zain zegoen; alegia, esandako egunean itzuliko zela berarengana. Askoren artean

Agindutakoari eutsiko diot! Txillardegi

-Inoiz ontziren batean agintea edukiz gero, ez diat inondik inora honelakorik ametituko -esan nuen, haserre, Mateo Mihurubikoak **agindutakoari** uko eginez bizi zelako. Edorta Jimenez

Ez du, beraz, guztiz agintzen, eta ez da agertzen **agindutakorik** . Imanol Unzurrunzaga

9 *aginduriko* *(46 agerraldi, 14 liburu eta artikulu 1ean) izlag*

Agindurik lurraldea Jainkoaren dohain. Elizen arteko biblia

Ordudanik, **aginduriko** janaria eta edaria baztertuz, barazkiak bakarrik ematen zizkien. aterata, absurduki altua zen **aginduriko** dosia: Lege honen arabera beteko ditu **aginduriko** botoaren eginbeharrak. gurutzearen beraren ahalmen miragarriaz hilkortasunaren Jordan ibaia igaro eta **aginduriko** bizien lurrean sartzeko. Elizen arteko biblia

Eta nik, Jaunak, bete egingo dut Abrahami **aginduriko** guztia. Elizen arteko biblia

10 *aldentze agindu*

Eskualde bi horietan, gainera, 56 gizonezko atxilotu dituzte hilabeteotan beren bikotekideei eraso egiteagatik edo jarri zitzaien **aldentze agindua** hausteagatik. Berria - Euskal Herria

11 *betearazpen-agindu* *(corpusean ez dago; ETCn 66 agerraldi)*

Betearazpen-agindu esaten zaio epai irmoa jasotzen duen dokumentu publiko eta solemneari. ETC-zientzia, zuzenbidea

Legeak alderdi exekutatuari zein defentsabide eman eta bide horiek erabil ditzakete **betearazpen-aginduan** aipatu ez diren pertsonek. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esaterako, manu horietako bati helduta, inskripzioak ezin dira aldatu, auzibide luzean emandako **betearazpen-aginduaren** ondorioz ez bada. ETC-zientzia, zuzenbidea

Epaiok zein naziotan eman eta nazio horrekin egindako itun berezirik ez badago, Espainian emandako **betearazpen-aginduek** izango dute nazio horretan izan dezaketen indar bera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Argi geratu da behin behineko **betearazpen agindua** lortzea arras erraza dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bete dadin izapide bidez, **betearazpen-aginduak** ematea zegokion monarkaren ordezkari zen Nafarroako erregeordeari. ETC-zientzia, zuzenbidea

12 *erosketa agindu*

Telefonicak datozen bi urteetan dibidendua %10 igoko duen usteak eta Deutsche Bankek sartutako **erosketa aginduek** , atzoko eguna berotu zuten. Berria - Ekonomia

13 *errege agindu*

Haiek aditzera eman zioten erregeari zer egin behar zitzaion legearen arabera Astin erreginari, funtzionarioek eramandako **errege-agindua** bete ez zuelako. Elizen arteko biblia

Adibidez, 1481-1505eko Libro de los Bollones kodexa dago ikusgai: **errege aginduak** , agiri administratiboak eta probintziaren eskumenei zegokien dokumentua biltzen zituen. Berria - Kultura

Ez ahal diok abegi hotza egingo gure **errege-agindu** honi, zeinak argi eta garbi baitu xedatzen, hartarako premiamendu-gutun zehatz-mehatzez, heriotza emateko ber-bertan Hamleti. Juan Garzia

14 *euro-agindu*

Espainiak haren kontra **euro agindua** luzatua zuelako, Madrilgo18/98 auzi famatu hortan jujatua izaiteko gisan. Herria

Euro-aginduaren jomugan dauden Yves Matxikote, Amaia Rekarte eta Haritza Galarraga Segiko kideek zeramaten banderola, Eneko Aizpurua eta Askatasuneko Jean Francois Leffortekin batera. Berria - Euskal Herria

Euro-aginduak deitzen dituzten horiek berme, bi abertzale gazte, Unai Berrostegieta eta Araitz Zubimendi, Frantziak despeitu ditu mugaz bestalderat, han Madrileko jujeen esku izan diten. Herria

Bestalde, Alemania, Italia eta Greziari **euro-agindua** lehenbailehen onartzeko eskatu zien. Berria - Euskal Herria

15 *Lur Agindu*

Munduan juduen aurka izandako garbiketak **Lur Agindura** itzultzeko ametsa berpiztu zuen sionismoa eta Holokaustoaren ondoren estatu bat izatea lortu zuten, Israel. Berria - Mundua

Gogoan nuen oso hunkitu ninduen argazki bat, 1994ko abuztukoa, Kuban "baltseroen krisia" gertatu zenekoa, orduan milaka eta milaka gizon-emakume itsasoz abiatu baitziren oso ontzi hauskorretan, batzuetan elkarri lotutako pneumatiko soiletan, Floridako hondartzetatik bereizten zituen tarte txikia egin eta Estatu Batuetara, **Lur Agindura** , iristeko. Jon Muñoz

Joan den udan ikustaldi bat egin nionean, zapatilla batzuk aurkitu nituen garajeko habeetatik zintzilik, kaligrafia zainduz idatzitako ohar batekin, non honako hau baitzioen italieraz: "Oinetako hauek jantzita ezarri nituen nik oinak, 34 urteren buruan, niretzat **Lur Agindua** izan zen lurrean". Xabier Olarra

Hemen bizi izaten zen jendea zinean lanean hasten zenean eta, hobera egiten zuenean, hemendik pixkana-pixkana mendebaldera joaten zen, Beverly Hills aldera, **Lur Agindura** . Fernando Rey

16 *ordainketa-agindu* *(corpusean ez dago; ETCn 47 agerraldi)*

Beraz, jende arruntarentzat ez dago inolako aldaketarik bere ohiko bankuetarako jendeak zuzen ditzakeen **ordainketa-aginduen** ondorioetan. ETC-prentsa

Edozein ekonomia nazionaletan ordainketa sistemak banku pilo bat inplikatzen du ez-bankuko sektoreko (enpresak, familiak, gobernu sektorea) **ordainketa-aginduekin** arituz. ETC-prentsa

UPN, Ahal Dugu, PSN, PP eta Ezkerraren botoa jaso zuen eskaerak, eta abstenitu egin ziren Geroa Bai eta EH Bildu, gobernuak jada **ordainketa agindu** duelako. ETC-prentsa

Behin administrazioak lagapen akordioaren berri izanik, **ordainketa agindua** lagapen-hartzailearen alde luzatu beharko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurreko artikuluan aipaturiko justifikazio dokumenturik aldez aurretik izan gabe salbuespenez emandako **ordainketa-aginduek** "justifikatu beharrekoak" izaera izanen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lagapenaren berri administrazioari eman aurretik, kontratistaren edo lagatzailearen izenean egindako **ordainketa-aginduek** kitatze ondorioak sortuko dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Fidatzaileari eragin zaizkion gastuak, horrek **ordainketa-agindua** jaso eta zordunari horren berri eman eta gero. ETC-entziklopedia

17 *urruntze-agindu*

Bi lagun atxilotu dituzte **urruntze aginduak** hausteagatik. Berria - Euskal Herria

Bikotekide ohia erasotzeagatik jarri zioten **urruntze-agindua** hautsi izana leporatu diote 20 urteko gazteari. Berria - Euskal Herria

18k bikotekideak mehatxatu dituzte, eta hiruk **urruntze aginduak** urratu dituzte. Berria - Euskal Herria

Epaileak salaketa artxibatu egin zuen hasieran, baina maiatzean berriz ireki zuen kasua eta 500 metroko **urruntze agindua** ezarri zion. Berria - Kirola

Gizonezkoak **urruntze agindua** zuen ezarrita. Berria - Harian

Gizonari **urruntze** eta inkomunikazio **agindua** jartzeko eskatu zuen emakumeak. Berria - Euskal Herria

Ofelia Hernandezen ustezko hiltzailea aurretik pentsatutako hilketagatik eta **urruntze agindua** ez betetzeagatik zigortzeko eskatu dute. Berria - Euskal Herria

Urruntze aginduak ez al du huts egin? Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

abiatzeko agindu (12); agindu arren (12); agindu baino (11); agindu baitzion (12); agindu baitzuen (9); agindu bat (55); agindu bat eman (11); agindu baten (12); agindu behar (40); agindu behar izan (13); agindu beharko (11); agindu berri (9); agindu bezala (220); agindu bezala egin (27); agindu didate (14); agindu die (49); agindu diete (13); agindu dio (84); agindu diot (17); agindu diote (17); agindu dit (35); agindu ditu (12); agindu dizu (17); agindu du (254); agindu du epaileak (8); agindu duela (9); agindu duen (11); agindu dut (10); agindu dute (48); agindu edo (9); agindu egin (12); agindu egiten (22); agindu eman (15); agindu ere (18); agindu eta (120); agindu eta legeak (9); agindu ez (9); agindu ezazu (13); agindu gabe (22); agindu guztia (12); agindu guztiak (28); agindu guztiok (9); agindu hau (107); agindu hau eman (62); agindu hauek (21); agindu hori (42); agindu horiek (18); agindu horren (8); agindu hura (10); agindu israeldarrei (8); agindu izan (9); agindu izana (21); agindu nahi (17); agindu nien (43); agindu nion (108); agindu nuen (22); agindu omen (19); agindu ondoren (16); agindu zehatzak (15); agindu zidan (134); agindu zidaten (19); agindu zien (305); agindu zien bere (16); agindu zieten (35); agindu zigun (47); agindu ziguten (18); agindu ziola (17); agindu zion (551); agindu zion atzo (8); agindu zion bere (13); agindu zion eta (9); agindu zion jaunak (8); agindu ziona (12); agindu zioten (74); agindu zituen (22); agindu zitzaien (10); agindu zitzaion (12); agindu zizkion (14); agindu zorrotza (9); agindu zuela (22); agindu zuen (928); agindu zuen atzo (34); agindu zuen bere (8); agindu zuen epaileak (20); agindu zuen erregeak (15); agindu zuen eta (15); agindu zuenean (13); agindu zuten (87); aitak agindu (12); alde egiteko agindu (15); altxatzeko agindu (8); arrazoiaren agindu (9); askatzeko agindu (11); aske uzteko agindu (8); ateratzeko agindu (30); atxiloketa agindu (10); atxilotze agindu (9); atxilotzeko agindu (37); atxilotzeko agindu zuen (16); baina agindu (10); bat agindu (47); bat egiteko agindu (8); batek agindu (10); bati agindu (11); behera uzteko agindu (12); berak agindu (29); bila joateko agindu (8); botatzeko agindu (21); botatzeko agindu zuen (9); da agindu (11); dela agindu (27); dela agindu du (10); desegiteko agindu (8); diola agindu (8); dituela agindu (29); dituela agindu du (9); dituela agindu zuen (13); dituztela agindu (9); dizkizuedan agindu (12); duela agindu (62); duela agindu du (29); duela agindu zuen (20); dutela agindu (19)

eginez agindu (18); eginez agindu nien (10); egingo duela agindu (12); egingo zuela agindu (18); egitea agindu (15); egiteko agindu (138); egiteko agindu zien (15); egiteko agindu zion (26); egiteko agindu zioten (9); egiteko agindu zuen (33); egoteko agindu (28); egoteko agindu zion (12); ekartzeko agindu (51); ekartzeko agindu zuen (27); emandako agindu (16); emateko agindu (45); emateko agindu zion (8); emateko agindu zuen (12); ematen dizkizuedan agindu (11); epaileak agindu (8); eramateko agindu (34); eramateko agindu zuen (11); ere agindu (29); erregeak agindu (36); erregeak agindu bezala (9); erregeak agindu zuen (11); erretzeko agindu (8); esateko agindu (24); esertzeko agindu (11); espetxeratzea agindu (13); espetxeratzeko agindu (47); espetxeratzeko agindu du (10); espetxeratzeko agindu zuen (34); eta agindu (129); eta agindu hau (12); eta agindu zien (10); eta agindu zion (17); eta agindu zuen (11); etortzeko agindu (12); ez esateko agindu (9); ezer agindu (11); gehiago agindu (10); gelditzeko agindu (25); geratzeko agindu (8); hala agindu (34); halaxe agindu (12); hark agindu (8); hartzeko agindu (25); hasteko agindu (13); hau agindu (17); hiltzeko agindu (32); hiltzeko agindu zuen (9); honela agindu (14); hori agindu (8); horixe agindu (8); idazteko agindu (9); igotzeko agindu (13); ikerketa bat agindu (13); ikertzeko agindu (18); inork agindu (10); inork agindu gabe (9); irteteko agindu (12); isilik egoteko agindu (9); isiltzeko agindu (24); itzultzeko agindu (29); ixteko agindu (36); ixteko agindu zuen (10); jainkoak agindu (20); jainkoak agindu bezala (10); jaisteko agindu (14); jarraitzeko agindu (19); jartzeko agindu (39); jartzeko agindu zuen (11); jaunak agindu (73); jaunak agindu bezala (45); jaunak agindu zion (9); jaunak moisesi agindu (29); joateko agindu (54); joateko agindu zion (15); kartzelatzeko agindu (8); kentzeko agindu (19); laguntza agindu (9); moisesek agindu (10); moisesi agindu (33); moisesi agindu bezala (26); mozteko agindu (10); nik agindu (22); nintzela agindu (12); nire agindu (9); nuela agindu (11); prestatzeko agindu (21); realen espetxeratzeko agindu (8); sartzeko agindu (35); sartzeko agindu zion (9); sartzeko agindu zuen (12); uzteko agindu (41); uzteko agindu zuen (12); zabaltzeko agindu (16); zaintzeko agindu (11); zela agindu (26); zer agindu (20); zera agindu (8); zergatik agindu (8); zezatela agindu (21); zezatela agindu zuen (14); zezaten agindu (14); zidala agindu (8); ziezaiotela agindu (10); ziezaiotela agindu zuen (8); zin eginez agindu (17); ziola agindu (15); ziola agindu zion (9); zituela agindu (27); zituela agindu zuen (11); zituztela agindu (8); zitzatela agindu (11); zitzatela agindu zuen (10); zuela agindu (75); zuela agindu zion (20); zuela agindu zuen (31); zuen agindu (10); zure agindu (10); zutela agindu (25); zutela agindu zuten (8)

agindua bertan (17); agindua bertan behera (17); agindua bete (65); agindua betetzea (12); agindua betetzeko (34); agindua betetzen (20); agindua betetzen ez (9); agindua betetzera (9); agindua betez (12); agindua da (13); agindua dela (9); agindua eman (417); agindua eman die (8); agindua eman du (37); agindua eman dute (13); agindua eman eta (15); agindua eman zien (16); agindua eman zion (20); agindua eman zioten (9); agindua eman zuen (156); agindua eman zuten (15); agindua emana (23); agindua emango (10); agindua ematea (14); agindua emateko (8); agindua ematen (27); agindua ematen du (9); agindua ere (12); agindua eta (21); agindua ez (26); agindua ez betetzeagatik (8); agindua ezarri (42); agindua ezarri zuen (9); agindua ezarri zuten (12); agindua hartu (9); agindua hausteagatik (18); agindua hautsi (16); agindua izan (17); agindua jaso (62); agindua jaso zuen (10); agindua zabaldu (11); agindua zion (18); agindua zuen (24); agindua zuten (8); aske uzteko agindua (8); ateratzeko agindua (14); atxiloketa agindua (9); atxilotze agindua (49); atxilotzeko agindua (53); atxilotzeko agindua eman (26); atxilotzeko nazioarteko agindua (10); botatzeko agindua (10); egiteko agindua (52); egiteko agindua eman (18); egoteko agindua (16); emandako agindua (26); epailearen agindua (16); eramateko agindua (9); erasotzeko agindua (8); erregeak agindua (8); erregearen agindua (29); espetxeratzeko agindua (32); espetxeratzeko agindua eman (24); eta agindua (17); eta atxilotzeko agindua (17); etxeratze agindua (40); etxeratze agindua ezarri (20); etxeratzeko agindua (16); gelditzeko agindua (18); gelditzeko agindua eman (11); geratzeko agindua (12); hiltzeko agindua (25); hiltzeko agindua eman (12); husteko agindua (16); irteteko agindua (8); itzultzeko agindua (11); ixteko agindua (17); ixteko agindua eman (9); jainkoaren agindua (18); jarraitzeko agindua (9); jartzeko agindua (10); jaunak agindua (15); jaunaren agindua (12); kanporatzeko agindua (10); nagusiaren agindua (8); nazioarteko agindua (10); nazioarteko atxilotze agindua (13); nire agindua (19); sartzeko agindua (14); suntsitzeko agindua (8); urruntze agindua (34); urruntze agindua hausteagatik (8); urruntzeko agindua (28); uzteko agindua (32); uzteko agindua eman (15); zen agindua (11); zuen agindua (22); zuten agindua (9)

aginduak bete (38); aginduak betetzea (10); aginduak betetzeko (14); aginduak betetzen (57); aginduak betetzen ez (8); aginduak betez (14); aginduak eman (42); aginduak ematea (11); aginduak emateko (15); aginduak ematen (51); aginduak eta (32); aginduak ez (26); aginduaren arabera (18); aginduaren aurka (8); aginduaren berri (8); aginduaren kontra (11); aginduaren zain (12); aginduari muzin (8); aginduei jarraituz (8); aginduei men (11); aginduen arabera (18); aginduen zain (18); agindueko bat (4); agindueta ari (6); agindueta aritu (4); agindueta dago (3); agindueta dauden (9); agindueta den (7); agindueta den mehdiren (3); agindueta diren (8); agindueta egin (3); agindueta egon (3); agindueta egongo (3); agindueta izango (5); agindueta izango du (3); agindueta jartzen (3); agindueta lan (5); agindueta lan egin (3); agindueta nago (8); agindueta zeuden (4); agindueta aldenda (4); agindueta aldentzen (6); agindueta aldentzen direnak (4); aguirreren agindueta (4); al sadren agindueta (3); baina aginduak (10); baten agindueta (7); bere aginduak (14); bere agindueta (44); bere agindueta izango (5); ditu bere agindueta (5); du bere agindueta (7); emandako aginduak (8); entrenatzailearen agindueta (3); erregearen aginduak (11); eta aginduak (50); eta bere agindueta (4); eta nire aginduak (12); gobernuaren aginduak (8); gobernuaren agindueta (7); hamar aginduak (16); hamar agindueta (3); haren aginduak (31); haren agindueta (15); haren agindueta (3); hire agindueta (4); imamaren agindueta (4); ivanovicen agindueta (4); jainkoaren aginduak (23); jainkoaren aginduen (10); jainkoaren aginduen bidetik (3); jaunaren aginduak (11); jaunaren agindueta (3); jaurlaritzaren agindueta (3); kirol zuzendariaren agindueta (3); madarikatuak zure agindueta (3); nire aginduak (33); nire agindueta (3); ren agindueta (6); sadr imamaren agindueta (4); sadren agindueta (3); urruntze aginduak (14); zituen aginduak (9); zure aginduak (18); zure aginduen (4); zure agindueta (12); zure agindueta nago (3); zure agindueta (5); zure agindueta aldentzen (4); zuzendariaren agindueta (4)

agindu al (5); agindu balio (5); agindu balu (3); agindu diat (4); agindu die (5); agindu die zu (3); agindu diet (3); agindu dik (5); agindu dio (8); agindu diot (6); agindu du (26); agindu du nostromoak (7); agindu duela (7); agindu duen (10); agindu duena (3); agindu duk (3); agindu dut (13); agindu dute (8); agindu ote (6); agindu zain (3); agindu zion (6); agindu zuen (8); agindupean dagoen (4); agindupean dagoen (4); agindupean dagoen polizia (3); agindupean dagoen polizia (3); agindupean daude (3); agindupean daude (3); agindupean egongo (3); agindupean egongo (3); agindupean eta (5); agindupean eta (5); agindupean zeuden (3); agindupean zeuden (3); agindupean zihoan (4); agindupeko beste (4); agindupeko destruktorea (3); agindupeko lurretan (3); agindupeko segurtasun (6); agindupeko segurtasun indarren (3); agindura abiatzen (4); agindura etxolatzen (4); agindu ren bat (10); agindurik eman (17); agindurik ematen (5); agindurik ez (21); agindurik ez ematea (3); agindurik gabe (15); agindurik jaso (5); agindurik jasotzen (3); agindurik nagusiena (5); agindurik onartzen (4); agindu riko atseden (3); agindu riko atseden eguna (3); agindu riko guztia (6); aingeruei agindu ko (3); aingeruei agindu ko die (3); aldiz agindurik (3); arrazoiaren agindupean (3); arrazoiaren agindupean (3); baten agindupean (6); baten agindupean (6); bere agindupean (16); bere agindupean (16); bere agindupeko (8); bere agindura (3); bere aingeruei agindu ko (3); berehala agindu ko (3); beren agindupeko (5); beste agindurik (3); botatzeko agindu ko (3); dezatela agindu ko (3); dezatela agindu ko dut (3); egiteko agindu ko (6); ekartzeko agindu ko (4); epailearen agindurik (6); epailearen agindurik gabe (6); errepublikaren gobernuaren agindupeko (3); errespetatu nik agindu riko (3); eta agindurik (3); eta haren agindura (5); francoren agindupeko (4); gobernuaren agindupean (4); gobernuaren agindupean (4); gobernuaren agindupeko (13); gobernuaren agindupeko segurtasun (5); hala agindurik (8); haren agindupean (10); haren agindupean (10); haren agindura (6); hegaztiak ixteko agindurik (3); husseinen agindupeko (3); inolako agindurik (7); inoren agindurik (7); inoren agindurik onartzen (3); irakeko gobernuaren agindupeko (4); ixteko agindurik (4); ixteko agindurik ez (3); jaunaren agindura (13); joateko agindu ko (3); kapitainaren agindupean (5); kapitainaren agindupean (5); kontrako agindurik (3); lur agindura (3); nik agindu riko (3); nik agindu riko atseden (3); poloniaren agindupean (4); poloniaren agindupean (4); santuaren agindupean (3); santuaren agindupean (3); zer agindu ko (8); zerbait agindu ko (3); zure agindura (5)

aginduta bezala (4); aginduta dago (3); aginduta egin (7); aginduta ere (3); aginduta eta (3); aginduta joan (3); agindutako aldaketak (3); agindutako bidetik (5); agindutako diru (3); agindutako dirua (5); agindutako eta (3); agindutako guztia (19); agindutako guztia betetzen (4); agindutako guztia egin (3); agindutako hitza (3); agindutako kalte (5); agindutako kalte ordainak (3); agindutako lana (4); agindutako lurralde (4); agindutako lurraldea (4); agindutako lurraldean (10); agindutako lurraldeaz (3); agindutako lurraldera (8); agindutako moduan (5); agindutako neurri (3); agindutako orduan (3); agindutako sarekada (4); agindutako txostena (5); agindutako txostenak (3); agindutako zerbait (3); agindutakoa bete (33); agindutakoa bete beharko (3); agindutakoa bete eta (3); agindutakoa bete zuen (6); agindutakoa beteko (11); agindutakoa betetzea (5); agindutakoa betetzeko (10); agindutakoa betetzeko eskatu (4); agindutakoa betetzen (17); agindutakoa betetzen ez (4); agindutakoa betetzera (3); agindutakoa betez (10); agindutakoa egin (6); agindutakoa egiten (6); agindutakoa ez (6); agindutakoak betetzen (4); agindutakoaren arabera (8); agindutakoaren kontra (4); agindutakora baizik (3); aitak agindutako (3); auzitegi nazionalak agindutako (3); baina agindutakoa (3); batek agindutakora (3); batek agindutakora baizik (3); batek hala aginduta (3); berak aginduta (5); berak agindutako (7); beste batek agindutakora (3); bete zuen agindutakoa (3); du agindutakoa (4); dute agindutakoa (4); eginez agindutako (11); eginez agindutako lurraldea (3); eginez agindutako lurraldean (3); epaileak aginduta (8); epaileak agindutako (4); epaileek aginduta (4); eta agindutako (14); eta agindutakoa (11); eta agindutakoa bete (3); ez du agindutakoa (3); fiskaltzak aginduta (3); garzonek agindutako (5); gobernuak agindutako (4); gobernuak agindutakoa (3); hala aginduta (46); hark agindutako (4); hauteskunde kanpainan agindutakoa (3); herria agindutako (3); hor agindutakoak (4); horrela aginduta (4); jainkoak agindutako (4); jainkoak agindutakoa (3); jaunak agindutako (7); jaunak

agindutakoa (4); **jaurlaritzak agindutako** (3); **kanpainan agindutakoa** (3); **legeak agindutakoa** (5); **legeak hala agindutako** (10); **medikuak agindutako** (4); **moisesek agindutako** (3); **nazionalak agindutako** (3); **nik agindutako** (8); **nik agindutako guztia** (5); **nik agindutakoa** (4); **ppk agindutako** (3); **profesan agindutakoa** (3); **senak aginduta** (4); **senak hala aginduta** (3); **udalak agindutako** (4); **zin eginez agindutako** (11); **zuen agindutakoa** (7); **zuk agindutako** (4)

aginduz ala (3); **aginduz ala giza** (3); **aginduz ari** (7); **aginduz ari zela** (6); **aginduz atxilotu** (8); **aginduz atxilotu zuten** (5); **aginduz bataiatzen** (3); **aginduz bataiatzen zuen** (3); **aginduz bere** (3); **aginduz bezala** (4); **aginduz egin** (24); **aginduz egin zen** (3); **aginduz egindako** (6); **aginduz egiten** (4); **aginduz eta** (9); **aginduz ez** (3); **aginduz gero** (17); **aginduz hil** (4); **aginduz itxi** (3); **aginduz madrilgo** (4); **aginduz madrilgo geologoen** (4); **agintarien aginduz** (4); **aita santuaren aginduz** (3); **aitaren aginduz** (5); **ala giza aginduz** (3); **alkatearen aginduz** (5); **auzitegi nazionalaren aginduz** (9); **auzitegiaren aginduz** (3); **baltasar garzonen aginduz** (4); **baten aginduz** (5); **beraren aginduz** (7); **bere aginduz** (3); **borondatez eta aginduz** (3); **egiteko aginduz** (7); **ekartzeko aginduz** (3); **epailearen aginduz** (63); **epailearen aginduz atxilotu** (4); **epailearen aginduz egin** (4); **epaileen aginduz** (7); **epaitegiaren aginduz** (4); **erregearen aginduz** (9); **erret aginduz** (3); **eta aginduz** (4); **eta haren aginduz** (3); **eta zure aginduz** (3); **etaren aginduz** (11); **etaren aginduz egin** (3); **fiskalaren aginduz** (3); **francoren aginduz** (3); **garzon epailearen aginduz** (22); **garzonen aginduz** (14); **giza aginduz** (7); **giza aginduz ari** (3); **gobernadorearen aginduz** (3); **gobernuaren aginduz** (11); **gorenaren aginduz** (4); **hala aginduz** (5); **hala aginduz gero** (5); **haren aginduz** (10); **ikertzeko aginduz** (3); **ingurumen ministerioaren aginduz** (3); **isiltzeko aginduz** (3); **jainkoaren aginduz** (12); **jainkoaren aginduz ala** (3); **jainkoaren aginduz ari** (3); **jaunaren aginduz** (16); **jaurlaritzaren aginduz** (3); **jeneralaren aginduz** (3); **medikuaren aginduz** (4); **ministerioaren aginduz** (4); **ministroaren aginduz** (4); **nagusiaren aginduz** (6); **narbonaren aginduz** (4); **nazionalaren aginduz** (10); **nazionaleko epailearen aginduz** (5); **nire aginduz** (5); **norbaiten aginduz** (3); **noren aginduz** (4); **olmo epailearen aginduz** (7); **salomon erregearen aginduz** (3); **santuaren aginduz** (5); **udalaren aginduz** (3); **zela aginduz** (4); **zure aginduz** (6); **zuzendaritzaren aginduz** (4)

---

aginduka *adlag* aginduak ematen.

Behin baino gehiagotan etorri zitzaien Angela, denak lagun izan behar zutela eta semea ez baztertzeko **aginduka**. Urtzi Urrutikoeetxea

---

agindupe

1 ***agindupe egon*** agindupean egon.

Eta are meatzari irainduagoa naiz **agindupe** ez **nagoen** neurrian, neure borondatez ari naizelako lugintzan nauzue zapaldu guztien haurride: linternero apala, libertatearen iturgina, sasikorik handiena naiz oraintxe. Koldo Izagirre

2 ***agindupean*** aginduaren mendean.

Feofar Khanek berrehun eta berrogeita hamar mila gizon zituen **agindupean**, bere soldaduak eta Kokand eta Kunduzeko khanerrietakoak kontaturik. Karlos Zabala

Horrek ez luke zertan akatsa izan, baina **agindupean** izan duen aktore sail bikaina ikusita (David Strathairn, Patricia Clarkson, Jeff Daniels, Robert Downey Jr., Ray Wise...) pena da Clooneyk haien lana gehiago baliatu ez izana. Berria - Kultura

Amiani tenientea naiz, eta laurogei preso dauzkat ene **agindupean**! Bernardo Atxaga

Miguel Arroiabe paramilitarren buruzagia hil dute, ustez bere **agindupean** zeudenek. Berria - Mundua

Berehala izendatu zuten bere nagusiek koru maisu Veneziak **agindupean** zuen uharte bateko monasterioko elizan. Felipe Juaristi

Azaroaren 3an preseski, Moriones eta Primo de Riveraren **agindupean**, tropa liberalen elkarketa munstroa antolatu zen Sesman. Txillardegi

Liburuaren abiapuntua Alarikoren **agindupean** 410ean godoek burututako Erromaren setioa eta harrapaketa izan zen. Imanol Unzurrunzaga

Irailaren erdialdera partitu ginen Nabarrenkoxetik, Montamateko baroiaren **agindupean**: mila lagun baino gehiago, pikari, arkabuzari eta baleztari. Aingeru Epaltza

Beste batzuek, Merryren **agindupean**, bidean zehar herriaren sarrera eta irteeran barrikadak jartzen ziharduten. Agustin Otsoa

Judatarren gudarostea Aminadaben seme Nahxonen **agindupean** zihoan. Elizen arteko biblia

Talde nagusiak, erdian, Keparen beraren **agindupean**, ahal diren puska guztiak garraiatuko ditu. Aingeru Epaltza

Leude edo jaun baten basailuak kondearen **agindupean** joaten ziren gerrara, baldin eta erregearen etxeko eginbeharren batek leudeei berak joatea galarazten bazien. Iñaki Iñurrieta

Errepublikaren aurka altxaturikoen **agindupeko** destruktorea, 1923an eraikia. Egun pare bakar batean 600 gerrillari bildu zituen berriro bere **agindupean**. Edorta Jimenez

Haien **agindupean**, 2000 gizonen tropa zegoen, baxenafartar eta gaskoi. Aingeru Epaltza

Ertzaintzari dagokionez ere, badago zer hitz eginik, Espainiaren **agindupean** dagoen polizia hori indar errepresibo bezala desaktibatu ezean ez baitago bake egoera ziurtatzerik gure herrian. Berria - Kirola

Geure **agindupean** geneuzkan soldaduen kontua atera dugu eta ez zaigu inor ere falta. Elizen arteko biblia

Beatrice gaztetxoa, ordea, arkume koitadua otsoaren aurrean bezala geratu zen etxean, bakarrik eta babesik gabe aita bihozgabe eta amorratuaren **agindupean**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zelularen azken batzarrean beren panfletoen zuzentasun gramatikalaz sekulako ika-mika piztu eta, eszisio arriskupean, aditu baten aburua biltzeko manatua zuen, egitekoa kosta ahala kosta konplitzeko **agindupean**. Aingeru Epaltza

Gu **agindupean** gaude, neurketak zientifikoen eskuetan ipini behar ditugu. Koldo Izagirre

Hasieratik partida **agindupean** hartu nahirik zelairatu zen Osasuna. Berria - Kirola

Belgikaren **agindupean** Konstituzioa osatzeko xedea bultzatzen da. Berria - Euskal Herria

Epailearen erabakia Gobernuaren **agindupean** dagoen Guardia Zibilaren txostenetan oinarritzen baita. Berria - Euskal Herria

Realak bi Liga irabazi zituen Ormaetxearen **agindupean**. Berria - Kirola

3 irud/hed

Diru-zirkulazioa egokitzea eta hura erregularki haztea proposatu zuen monetarismo pragmatikoak -banku zentral nagusien **agindupean** ordudanik-; diruaren hazkundeak eskaintza potentzialaren hazkundearekin batera joan behar zuen. Koro Navarro

Gizakiak, alabaina, aldakorrak dira -bakanak baitira Arrazoiaren **agindupean** bizi direnak- eta, halere, gehienak bekaiztiak dira, eta Mendekuari emanagoak, urrikalmenduari baino. Piarres Xarriton

Durundi egiten dit oraindik belarrietan haien oin-hotsak, haien joan-etorrien hotsak obedientzia santuaren **agindupean**. Askoren artean

ADN zati horietariko bakoitzak kate polipeptidiko bat ekoizten du, eremu bati dagokiona: proteina-eredu bat, alegia, zeinaren hiru dimentsioko formaren eta karga elektrostatikoaren **agindupean** baitaude ezagutze- eta eragite-gaitasunak. Juan Garzia

Ez da hori, inolaz ere, helburua, jolasa ez bailitzateke jolas izango asmo baten **agindupean** egongo balitz. Iñaki Arranz

Kako-okerren burmuin erraldoiak lanean zirauen eta, haren **agindupean**, belauniko jarri eta narrasean joan zen itsasontziaren bizkarretik, ahalik eta urrunen soinu hartatik. Julen Gabiria

4 ***agindupeko*** aginduaren mendekoa.

Idazle frantsesaren lankide, ez, hobeki esan, **agindupeko** baten bitakora koaderno gisako batean irakur daitekeenez, Cabo Jubyn, mende hasiera hartan, mairuen beldur baino gehiago, monotoniaren, harearen eta eltxoen beldur izaten ziren. Patxi Zubizarreta

Errepublika gizakiena denean, familia ez da **agindupeko** menpekotasuna, itunpekoa baizik. Merkataritza-guneetan, beren **agindupeko** lurren erdian, osmanliarrek Espainia eta Portugaleko judu sefardita iheslarien komunitate zibilak ezarri zituzten. Juan Martin Elexpuru

Buruzagi gorenaren **agindupeko** 27 batailoiek (Andetxaga bizkaitarrarenak, eta Mendiri eta Lizarraga nafartarrarenek), sekulako erasoa jasan ditek Moriones-en 26 batailoiengandik. Txillardegi

"Balzaren **agindupeko** inkontrolatuen jarrera ulertezina" salatu zuen Askatasunak atzo. Berria - Euskal Herria

Washingtonen **agindupeko** detentziogune sekretuak badaude Afganistan eta Pakistanen arteko mugaldean kokatua den Kohaten, Indiar Itsasoko Diego Garciako base militarrean, Jordaniako Al Jafr espetxean eta nazioarteko uretan dabiltzan hainbat itsasontzi militarretan. Berria - Mundua

Irakeko Gobernuaren **agindupeko** segurtasun indarren eta okupazio tropen aurkako erasoez gain, bahiketak ere egiten dituzte gerrillan diharduten taldeek. Berria - Harian

Hiriburua zuen **agindupeko**, gainerakoa aitoren semeen esku baitzen. Felipe Juaristi

· Era horretako egitura hauteman daiteke, orobat, gene multzo batzuen **agindupeko** moduluz eraikia, hainbat espezieren enbrioi-garapenean. Juan Garzia

Keparen **agindupekoak**, hogei minutu geroago. Aingeru Epaltza

Tabako kontrabandoa zuzentzen zuena eta neu **agindupeko** neukana Mentxu huen, asteotako afera honetan ere neu libre uztea lortu duen pertsona bera. Josu Landa

Gorde dezatela sinesmena bere **agindupekoek**, erregea biluzik dagoela ez dezatela ikus, horixe du-eta aginpidea ez galtzeko baldintza nagusia. Joseba Zulaika

4 ***agindupetik*** agindu**a**ren mendetik.

Sortu gaituen Jaungoikoaren **agindupetik** bere burua urrundu eta espiritu gaiztoen zerbitzura jartzen dena zintzoa ote da, agian? Imanol Unzurrunzaga

Gobernuak ez du onartuko bere **agindupetik** kanpo egon daitekeen segurtasun indar paralelorik; herritarrek hautatutako gobernu bat gara eta ez norbaiten aginduz izendatutako agintea. Berria - Mundua

Clunytarren eraginez egin zen Coyanzako kontzilioa 1050ean, eta juxtu handik urte bete baino lehen, "Vizkaia et Durango"ko eliza guziak laikoen **agindupetik** askatzeko ("ingenuotzeko") dekretua zabaldu zuen Nafar Erregeak. Ez da kontzientziaren azpitik airatzen hegaldaka; kontzientziatik, kontsignapetik, **agindupetik** mintzo da ezinka. Patziku Perurena

5 ***aginduzko*** *izlag/izond*

Lege sinkronikoa orokorra da, baina ez da **aginduzko** legea. Isabel Arrigain

Gizonek atzera egin zuten Gandalfen **aginduzko** tonuaren aurrean, galdera gehiagorik egin gabe. Agustin Otsoa

Berehala Sofiaren **aginduzko** oihu erabakigarria aditu zen gelan: [...]. Jon Arretxe

Ganbaratik irteteko **aginduzko** keinua egin zidan. Edorta Jimenez

"Alferrikako" elikagaiak, kostua jaitsaraziko luketenak, etc, desagerrarazten dira, prezioak ("lanpostuak", argudiatuko luke filantropo arribistak) atxikitzea agintzen baitu monopolio eta oligopolio eskergen **aginduzko** eskaera/eskaintza legeak. Edorta Agirre

Inguruabar **aginduzko** eta iragankorrek egin zituzten zuzenbide axiomak hark erro-errotik arbuiatzen zituen errakuntza eta makurrak. Karlos Linazasoro

Herri bakoitzaren kultura "xxxx", "xxxx", "xxxx"ren gisakoa da: 'da', horrek Menéndez Pelayo-rentzat, konstatazioa baino gehiago, **aginduzko** 'izan behar du' esan gura baitu. Joxe Azurmendi

Testamentuak, esan bezala, herriaren legea izanik, agindu baten indarrez egin behar ziren, eta zuzen eta **aginduzko** zeritzen hitzen bidez. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

agindupean dagoen (4); **agindupean dagoen polizia** (3); **agindupean daude** (3); **agindupean egongo** (3); **agindupean eta** (5); **agindupean zeuden** (3); **agindupean zihoan** (4); **agindupeko beste** (4); **agindupeko destruktorea** (3); **agindupeko lurretan** (3); **agindupeko segurtasun** (6); **agindupeko segurtasun indarren** (3); **arrazoiaren agindupean** (3); **baten agindupean** (6); **bere agindupean** (16); **bere agindupeko** (8); **beren agindupeko** (5); **errepublikaren gobernuaren agindupeko** (3); **francoren agindupeko** (4); **gobernuaren agindupean** (4); **gobernuaren agindupeko** (13); **gobernuaren agindupeko segurtasun** (5); **haren agindupean** (10); **husseinen agindupeko** (3); **irakeko gobernuaren agindupeko** (4); **kapitainaren agindupean** (5); **poloniaren agindupean** (4); **santuaren agindupean** (3)

---

agindutxo *iz adkor* agindua.

Baina eman didaten **agindutxoa** betetzea gogor egiten zait, oso gogor.Halere, agindua bera ez da zentzu izugarrikoa (ez ahantzi, ordea, gero balio erlijioso edo morala izan den asko, higiene edo kortesiako **agindutxoa** izanez hasi dela!). Edorta Jimenez

Agindutxoa onartu izana nondik nora izan zen argitzen du gero Felixek. Edorta Jimenez

---

aginduzale *(orobat* ***agindu zale****)* **1** *izond* aginduak emateko joera duena.

Motel halakoa ez da ezertaz ohartzen, baina neure buruari galdezka hasten natzaio ea emakume gazte **aginduzale** eta buruargi hau ez ote den nire otoitzei emandako erantzuna. Oskar Arana

Eguzki Erregea esaten zioten, alde batera haurtzaroan bere ile horiagatik ezizen hori bera izan zuelako, eta, bestera, **aginduzalea** zelako eta besteen gainetik egotea gustuko zuelako. Patxi Zubizarreta

Ez zen ez **aginduzale** eta ez tiranoa. Anton Garikano

Esatea zuen orduan jendeak bera tiranoa zela, **aginduzalea**, menperatzailea, hala nahi bazuten; axola gutxi. Anton Garikano

2 (adizlagun gisa)

-Apaiz jauna -esan zuen Pepponek kopetilun eta **aginduzale** -, deitu sakristauari eta dorrera igo dadila erlojua gelditzera. Koldo Biguri

---

aginean **1** *adlag* aditzak adierazten duena gertatu hurran delarik. ik **zori 8**.

Hogeita hamar urteetan aurrera zihoan orduan, eta emakume itsusi eskarmentu gabeko bat zen, oso laster neskazahar bihurtu **aginean**. Oskar Arana

Enricok ez bide zeukan hain garbi kontua, baina iluna zen ordurako, eta hotzak akabatu **aginean** geunden; eskuak garbitu, gaztainopil zati bat erosi, eta etxera jo genuen, elektrolisiari bere gisa jarraitzen utzirik. Juan Garzia

Orduan jakin zuen [...] zoritxarren bat eragin ondoren betiko gogoan txertaturik gelditzen eta azalera atera **aginean** egoten diren istorio gazi horietako bat osatzeko lehen pausoa emana zuela dagoeneko bere anaia bihotzekoak. Pako Aristi

Artekalekoan hirugarren urtea bete **aginean** zegoelarik alde egin zuen Bilbotik. Josu Landa

2 ***hil aginean*** *adlag* ik **hurran 6**; **hurren 10**.

Ez, nik egingo nion tu ostera ere, **hil aginean** nengoela. Koldo Izagirre

Etzanda zeutzan pertsona guztiak hilda zeuden, edo **hil-aginean** soilik? Karlos Linazasoro

Hil **aginean** gelditu zen eta barrabila bat galdu zuen. Gotzon Garate

---

aginik *adlag* aginean.

Urduriturik, ezinegonak jota eta, azkenerako, kirioak birrindu **aginik** eta izularriak janda, erotuta, hitz batean, dozenaka eta dozenaka mila bufalok ibaira bota omen zuen bere burua eta Mississipiaren beste urertza iritsi. Pako Aristi

Hendrixtownen zoologikoa nahiko kontu berria da [...], egitea erabaki zuten garaian inguruan diren hiriburuetako zoorik gehienak diru laguntzarik gabe baitzeuden, hondaturik, zikinaren keruak jan **aginik** eta ixteko bidean. Pako Aristi

---

aginka ik **haginka**.

---

aginkada ik **haginkada**.

---

aginkoi *izond* autoritarioa.

Bertute kristau eta demokratiko kaskarren aldean ("moral bisigotikoa"), izpiritu konkistatzaile eta **aginkoia** : " xxxx". Joxe Azurmendi

Nire galdera airean galdu zen, aldi berean Aita Arbizuk bi besoetatik heldu eta etzanarazi egin baitzuen agure erkindua, gaixoekin erabili ohi dugun goxotasun **aginkoi** horrekin "lasai, lasai" esaten ziola. Xabier Mendiguren Elizegi

---

aginkor *adlag* era autoritarioan.

Bere albora deitu zidan, **aginkor** . Edorta Jimenez

---

aginpe *(ETCn **95** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **agindu** eta **agindupe** agertzen dira)* **1** *iz* agintea.

SS Alderdiko organizazioa (Schutzstaffel, defentsako eskoadrilak -Ortega-rentzat "Santa Herman-dad"!) Estatuan integratzea Himmler-en eskutik, zuzenean Hitler-en **aginpe** pertsonalean: 50.000 gizon ja 33an; Joxe Azurmendi

2 ***aginpean*** agintepean.

Gudaroste izugarria izango zuen gainera **aginpean** : 50.000 mila pertsona, militar, zientzialari eta bestelako langileen artean. Fernando Morillo

3 ***aginpeko*** *izlag* agintepekoa.

Zera lortu nahi dute: hemengo konpainia txiki eta ertainak multinazionalen **aginpeko** merkatuan lehiatu ahal izatea, "ganoraz". Berria - Ekonomia

---

aginpide *(orobat **aginbide** g.er.)* **1** *iz* agintzeko eskubidea, obediarazteko eskua. ik**aginte**; **autoritate**.

Zuei fedean hazten laguntzeko, eta ez hondatzeko, eman zidan Jaunak **aginpide** hau. Elizen arteko biblia

Ez didazu erantzun behar? Ez al dakizu **aginpidea** dudana zu askatzeko ala gurutziltzatzeko? Elizen arteko biblia

Zuk, biziaren eta heriotzaren gain **aginpidea** duzunez, Hilen Egoitzara jaitsarazten duzu, bai eta irtenarazten ere handik. Elizen arteko biblia

Ni ere prest nago zure **aginpidea** ezagutzeko, zeure zerbitzari nauzu eta nahi duzuna egingo dut: zure esanera nago. Jose Morales

Letra horrek, ilargi beteko gauetan, **aginpidea** ematen dit Ghimel marka daramaten gizonen gainean. Juan Garzia

Aginpidea eman zaiona eta handien bezala jotzen dena, berriz, izan bedi txikienaren pareko eta gainerako anaien morroi. Askoren artean

Alaba zaharra izateak ematen zion **aginpideaz** baliaturik, kalera ematen zuen gelaz jabetu zen. Karlos Zabala

Gobernu baten lehen ardura bere **aginpidea** ezartzea eta agindutakoa betetzen ez duten egintza guztiak -goi-mailako traiziotik zergak ez ordaintzerainokoak- zapaltzea baita. Iñaki Mendiguren

Miraria zirudien, beraz, Don Carlos gazteak aitona ere izan zekizkiokeen beterano ohoretsu haiengandik, hain osoki **aginpidea** eta errespetua biltzea. Txillardegi

Erromatar batek ere ez du bere burua errege izendatzen, ez eta purpuraz janzten ere **aginpidea** handitzeko. Elizen arteko biblia

Hortik datoz, halaber, aitaren **aginpidea** ahuldu zuten legeak, aitari seme-alaben ondasunen jabegoa kenduz. Iñaki Iñurrieta

Castrok **aginpidea** uzten bazuen, Estatu Batuetako erraldoiak aurki jarriko zuen berriz bere bota handia uharte haren gainean. Jon Muñoz

Azaldu ditut lege salikoen, erromatarren eta kapitularren **aginpidea** galtzea ekarri zuten arrazoiak. Iñaki Iñurrieta

Kristoren apostolu garenez, geure **aginpideaz** balia gintezkeen, baina maitasun samurrez tratatu nahi izan zaituztegu, bere haurrak maitekiro zaintzen dituen amak bezala. Elizen arteko biblia

Nola ulertzen duen anaiarteko bizitza eta **aginpidea** dutenen jokabidea. Askoren artean

Egiazko fedeari leial eta Elizako **aginpidearen** menpeko izatea. Askoren artean

Ospea galdutako gidariek indarra erabiltzera jotzen dute moralki galdutako **aginpideari** eutsi ahal izateko. Iñaki Mendiguren

Dagoeneko zazpi dira **aginpideari** eraso egitea eta ordena publikoa apurtzea leporatuta atxilotutako langileak. Berria - Ekonomia

Gerra hura izan zen Errusia munduaren ekonomia kapitalistatik bereizi eta Alemanian nazional-sozialismoa **aginpidera** eramango zuten astinaldien aurrekaria. Koro Navarro

Aginpiderik ez du Jaurlaritzak horretarako, nahiz eta bere esku dituen eskumenak "muturreraino" landu dituela onartu. Berria - Euskal Herria

Oso gogo onez hartu zuen 1917ko otsaileko iraultza, tsarra **aginpidetik** kendu eta Errusia demokraziaren bidean jarri baitzuen. Jose Morales

Aginpidez eta indarrez jantzitako grinek ezabatu egin dituzte [...] irizpide tolesgabe hauek. Juan Martin Elexpuru

Matematikari bost axola bazaizkio **aginpidezko** argudioak! Jon Muñoz

Aginpidea itzalean, baina **aginpidea** azken finean. Jon Muñoz

Bakoitzak nahi duena pentsatzeko eskubidea du, edo, eskubidea baino gehiago, arrazoia eta konponbidea eskatzeko **aginpidea** . Karlos Linazasoro

Hark, berriz, ez zuela zabaldu nahi, eta inguruan bildu zitzaizkion EAJko batzuek ere gogor egin omen zioten, ea nork emana zion hilkutxa hura zabaltzeko **aginpidea** . Inazio Mujika Iraola

2 irud/hed

Baina askoz zabalagoa da imitazioaren **aginpidea** , metaliteraturaren eremuetan barrena parodiara, pastixera, plagiora eramaten gaituena. Iñaki Arranz

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Kontaiozue aitari ikusitako guztia eta azaldu berari zein **aginpide** handia dudan Egipton. Elizen arteko biblia

Aginpide handia bereganatu zuen etxean, eta neurriz kanpo baliatzen zen hartaz. Karlos Zabala

Bisigodoen mendeko lurretan, aldiz, erromatar zuzenbidea hedatu zen, eta **aginpide** orokorra iritsi zuen. Iñaki Iñurrieta

Espainian eta Portugalen, penintsularen errekonkistaren eta islamak atzera eginaren ondorioz sendotu zen **aginpide** zentrala. Koro Navarro

Soldadu-multzo bat jarri zuten haren esanera, eta orotariko ikerketak egiteko **aginpide** mugagabea eman zioten. Jose Morales

Aldi berean, auzitan jarri ditu probidentzia- estatu keynestarrak osaturiko gizarte-konpromisoak, eta, apurka-apurka, estatuen **aginpide** ekonomikoa higatu du. Koro Navarro

Gizarte Helenikoa hondamenera eramana zuen batasunik eza eta desadostasun politikoa eztitu eta kontrolatu egiten ziren **aginpide** espiritual garrantzitsuenaren eraginez. Iñaki Mendiguren

Sultanak **aginpide** politikoa eman zion Konstantinoplako prelatu horri. Iñaki Mendiguren

Ordurako Frantzisko anaien gaineko aginte instituzionalari uko egina zen (egoera berriek gainditua), nahiz eta **aginpide** karismatikoa azkenera arte mantendu zuen. Askoren artean

Aurrerantzean bi **aginpide** burujabe zeuden, errebelazio profetikoa eta arrazoi filosofikoa. Iñaki Mendiguren

Kolektibitateak norbanako baten eskuetan delegatutako **aginpidea** da. Josu Zabaleta

Erabateko **aginpidearen** jabe, bat-batean titiburuak esku bakoitzeko hatz erakusle eta erpuruarekin hartu, eta indarrez atximurkatzen zizkidalarik, oso serio begiratzen zidan aurpegira. Ramon Saizarbitoria

Erregeek ez zuten ia zuzeneko **aginpiderik** . Iñaki Iñurrieta

Adelardo izeneko batek hainbesteko **aginpidea** izan zuen enperadorearengan, non printze honek gauza guztietan egiten baitzion men. Iñaki Iñurrieta

Zure adimen zoliak aise ulertuko du bertsook ezkutatzen duten arriskua, eta zure **aginpide** ezin zuzenagoak bitarteko guztiak jarriko ahal ditu gipuzkoarren arima osasuntsu gordetze aldera! Anjel Lertxundi

Nire baitan banekielako haien denen bizitzen gaineko nolabaiteko **aginpidea** nuela. Xabier Mendiguren Elizegi

Ohorezko **aginpide** hutsarekin konformaraztea. Harkaitz Cano

4 (hitz elkartuetan)

Horrenbestez, teologoen **aginpide**-mota berria fedezko edukien inguruan berretsita gelditu zen, arrazoiaren erabilera egoki eta eguneratuan oinarrituta. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aginpide apostolikoaz (3); **aginpide handia** (3); **aginpide hori** (5); **aginpidea eman** (5); **aginpidea eta** (5); **aginpidea izan** (3); **aginpiderik ez** (7); **aginpidez jokatzen** (8); **aginpidez jokatzen dudan** (5); **amaren aginpidea** (3); **bere aginpide** (4); **beren aginpidea** (3); **esango zein aginpidez** (3); **eta aginpide** (6); **eta aginpidea** (5); **gain aginpidea** (4); **gaineko aginpidea** (3); **jesusen aginpidea** (3); **nondik jesusen aginpidea** (3); **zein aginpidez** (9); **zein aginpidez jokatzen** (8)

---

aginpidekotasun *iz* aginpidekoa izateko nolakotasuna.

Alferreko legerik, beraz, inola ere ez, horrek premiazkoak beheratu eta legeriaren zehaztasuna eta **aginpidekotasuna** zalantzan jarriko lituzke eta. Andres Urrutia

---

aginpidetza *iz* aginpidekotasuna.

Egin zuen apustua galdu egin du Jacques Chiracek eta bere jarraitzaileen artean luzarorako ahulduta geratu daiteke bere **aginpidetza** (--...). Berria - Harian

---

agintalde *iz* aginte taldea.

Erreserbako 950 soldadu eta **agintalde** bat ere zabalduko lirateke Kongo ekialdean eta 2.550 militar geratuko lirateke Kinshasa hiriburu aldean. Berria - Mundua

Rumsfeldekin batera Irakeko Defentsa Zibileko (ICDC) kuartel bat ikuskatu zuen okupazio indarren **agintaldeko** eledun Mark Kimiit jeneralak zehaztu zuenez, "argi utzi behar da, haatik, Irakeko segurtasun indarrak ez dutela orainokoan herrialdeko segurtasuna erabat euren gain hartzeko gaitasunik". Berria - Mundua

Saddam Husseinen **agintaldeari** sostengua eman zioten. sunitek, aldiz, uko egin diote okupazio indarrek deitutako bozetan parte hartzeari. Berria - Mundua

---

agintaldi *(orobat **agintealdi** g.er.)* **1** *iz* agintzen den aldia.

Luis Villasanteren **agintaldia** (1970-1989). Goiz hartan bertan gogorarazi zidaten sobietarren **agintaldian** ahantzia nuena: ni judua nintzen. Felipe Juaristi

Eskerrak putakume horri hurrengo urtean bukatzen zaion **agintaldia**. Harkaitz Cano

Hantxe hasi zen guztia, Espainiar II. Errepublikako **agintaldi** labur eta amoltsuko gertakizunik odoltsuena izango zen hura. Jon Maia

Joan Paulo II.ak denera bere **agintaldian** 14 entziklika plazaratu zituen. Berria - Gaiak

Neure buruari esaten diot: Zer dela-eta dut honelako nahigabea, zer dela-eta nago honen aztoratua, ona izanik eta maitatua neure **agintaldian**? Elizen arteko biblia

Kontatuko dudana Enperadore Horiaren **agintaldian** gertatu zen, Txinan artistak, zentzurik onenean, desertuan harea-aleak bezain ugariak ziren erregealdian. Felipe Juaristi

Erroman bahitua egon ondoren, seleukotarren **agintaldiko** ehun eta hogeita hamazazpigarren urtean hasi zen errege izaten. Elizen arteko biblia

Kumaratungak bost urteko **agintaldia** seira luzatu zuen ezkutuan egin zuen ekitaldi batean. Berria - Mundua

Nire **agintaldiaren** lehen erdian oso harreman ona izan nuen Hezkuntza Sailarekin. Berria - Euskal Herria

Aznarrek bere **agintaldi** osoa agortuko du. Berria - Euskal Herria

Agintaldiko urratsik nabarmenenak honakoak izan dira: [...]. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Agintaldi berrian, Afrika eta Asian zentro berriak irekitzeko asmoa agertu du. Berria - Kultura

Inorekin ondo eraman ezinda bete du bere **agintaldi** osoa Monterok. Berria - Euskal Herria

Baiezkoa lortuz gero, Jose Elorrietak bere azken **agintaldiari** ekingo dio. Berria - Ekonomia

PSOEren aurreko **agintaldian** Estatuko Segurtasun idazkari izandako Rafael Veraren indultuaren inguruan, Espainiako Gobernuari "legeak ezartzen dituen pausoak errespetatzeko" eta "presioak saihesteko" eskatu zion atzo Patxi Lopez PSE-EEko idazkari nagusiak. Berria - Euskal Herria

Haren bost urteko zorigaiztoko **agintaldiaren** adibide da teorian kontserbadoreengandik gertuago dauden Italiako gizarteko bi egitura horiek Silvio Berlusconirengandik baztertu izana. Berria - Mundua

3

"Estatu espainiarrean bizi garen euskal herritarrok **agintaldi** mota guztiak ezagutu ditugu, eta ondorioa garbia da: Estatu espainiarrarekin negozio oso txarra egin dugu euskaldunok, esparru guztietan", esan zuen Otegik. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agintaldi baterako (3); **agintaldi honetan** (3); **agintaldi osoa** (3); **agintaldia amaitu** (10); **agintaldia amaitu aurretik** (3); **agintaldia amaitu zuenean** (3); **agintaldia amaitzean** (3); **agintaldia amaitzeko** (4); **agintaldia beteko** (4); **agintaldia bukatu** (4); **agintaldia hasi** (4); **agintaldia izango** (6); **agintaldia luzatzeko** (3); **agintaldian ere** (6); **agintaldian estatu** (3); **agintaldian zehar** (4); **agintaldiaren hasieran** (3); **agintaldiaren lehen** (4); **agintaldiko ehun** (13); **agintaldiko ehun eta** (13); **agintaldiko lehen** (8); **aurreko agintaldian** (6); **azken agintaldia** (7); **azken agintaldia izango** (3); **azken agintaldian** (3); **aznarren agintaldian** (3); **aznarren agintaldiaren** (3); **bere agintaldi** (3); **bere agintaldia** (16); **bere agintaldian** (26); **bere agintaldiaren** (7); **bere agintaldiari** (5); **bere agintaldiko** (9); **beste agintaldi** (3); **bi agintaldi** (5); **bigarren agintaldi** (4); **bigarren agintaldia** (7); **bigarren agintaldian** (5); **bigarren agintaldian ere** (3); **bigarren agintaldiko** (5); **bigarren agintaldiko lehen** (4); **bost urteko agintaldi** (3); **bost urteko agintaldia** (4); **bost urteko agintaldian** (3); **bushen agintaldian** (3); **datorren agintaldian** (3); **diktadorearen agintaldian** (4); **du agintaldia** (3); **eta agintaldia** (4); **hirugarren agintaldia** (5); **hirukoaren agintaldia** (3); **hurrengo agintaldian** (3); **husseinen agintaldian** (4); **monteroren agintaldian** (3); **monteroren agintaldiaren** (3); **ohiaren agintaldian** (3); **ppren agintaldian** (4); **presidente ohiaren agintaldian** (3); **presidentearen agintaldia** (5); **presidentearen agintaldian** (5); **psoeren aurreko agintaldian** (3); **saddam husseinen agintaldian** (4); **seleukotarren agintaldiko** (13); **seleukotarren agintaldiko ehun** (13); **urteko agintaldi** (5); **urteko agintaldia** (10); **urteko agintaldian** (5); **urteko agintaldiaren** (3); **zuen agintaldia** (3)

---

agintarau *iz* agintzeko araua.

Esan berri dugunaren ondorioz, Espainiako Kontseiluaren **agintarauak** epai daitezke: urrea eta zilarra apaingarri eta alferrikako beste gauza batzuetan erabiltzea debekatzen dute; Holandako estatuek antzeko dekretua egingo lukete, baldin eta kanelaren kontsumoa debekatuko balute. Iñaki Iñurrieta

---

agintarazi, agintaraz(i), agintarazten du *ad* agintzera behartu.

"Efraimen gainean zamalkatzen ibiliko naiz", hau da, 'erreinarazi eta **agintaraziko** dut bera'. Xabier Kintana

Harengana hurbildu, eskutik heldu, eta aparte eraman nuen, amak entzun ez zezan esan behar niona; **agintarazi** nion txintik ere ez zuela aterako kontu hartaz, gurasoek ere ez baitzuten jakin behar. Juan Kruz Igerabide

Mollyrengan pentsatu dut hurrengo, eta hura buruan atxikitzeko **agintarazi** diot neure buruari, hiltzeko unera arte buruan atxikitzeko. Mirentxu Larrañaga

Behin joana zelarik, eta orduantxe soil-soilik, nire ametsa ekarri nuen gogora, eta ametsetan neure buruari **agintarazi** niona, artean bete ez nuen hitza. Mirentxu Larrañaga

Baina bestelako arrakasta goratua da, gizona askatzeko, bere gain **agintaraztea**. Josu Zabaleta

---

agintari *(ETCn **45.880** agerraldi; orobat **agindari** g.er.)* **1** *iz* agintea duen pertsona.

Saiatu nintzen kontra egiten, Carrero odolzale nazkagarri bat zela; Adelaren aita hil zutenen **agintarietakoa**, gainera. Juan Kruz Igerabide

Hil da gure erregea, eta lur hauek **agintari** bat behar dute, eta **agintari** horrek zu behar zaitu, erregetzarekin batera. Juan Kruz Igerabide

Seguru asko ni ez nintzen hainbeste kexatuko gure **agintariak** danimarkarrak izan balira, edo suediarrak, edo nik al dakit, bada, nongoak. Hasier Etxeberria

-Lerro bakar bat idazten baduk - teman hura, penatu antzo -, salaketa egin beharko diagu hire kontra, **agintariak** iraintzeagatik. Aingeru Epaltza

Baina apaiz guztiak, **agintari** guztiak bezalaxe, ez dituk berdinak izaten, eta kontu honetan ere, bada, herri batzuetan libre zuan heldua jo eta dantzan egitea, eta besteetan ez. Pako Aristi

Hirigunearen irudia hondatzen omen dute halako pertsonek, **agintarien** ustez. Jon Arretxe

Agintariek eta hedabideek Txerrenen beraren buztana ikusi dute herritarren protestetan. Txema Ramirez de la Piscina

Hementxe agertzen dira elikagaien egiazko nagusiak, jabeak, **agintariak**. Edorta Agirre

-Komunista naiz, aita bezala - jarraitu zuen Adelak - orain nabilen alderdi hau ez da gerra garaikoa bera, nahiz eta **agintari** batzuk ordukoak izan eta akats larrien ardura eduki. Juan Kruz Igerabide

Geltokira iritsi eta **agintariak** gure zain. Edorta Jimenez

Bere izaera zakarrak ordea berehala sortu zizkion arazoak **agintariekin**. Koro Navarro

Ta itz oien azia, aberatsen ganako gorrotoa, **agintarientzako** amorrua ta Jaungoikoarentzat eskergabekeria erakusten duan azi txarra, errez ta edonun sortu oida, lenengo ereñaldietan ezpada, bigarrenean edo laugarrenean. Xabier Mendiguren Elizegi

Non egon dira **agintariak**, non politikoak, non sindikatuak? Iñigo Aranbarri

Indiako **agintariek** edo propio kontratatutako aktoreek laguntzen zuten. Unai Elorriaga

Hiriko enpresari ohikoa, lerdoa edo gaizki plazatua izan ezean, **agintarien** itzalpean biren jabe oheratu eta hogei dauzkatela atzarri diren horietarik. Aingeru Epaltza

Hala, herri askotan, aristokraziak, **agintariak**, enperadoreak, ilea luze daramate beren nortasunaren eta boterearen adierazle, baina haien menpeko zerbitzari guziek motza. Patziku Perurena

Ondorengoa da finkatzea Macondo triskatzeko agindua ez zuela Gobernuak eman, potentzia atzerritarraren **agintariek** baizik. Jon Alonso

Baina maiz eztabaidan aritzen ziren gobernatzeko arteaz, Federicok esaten baitzuen: gure **agintari** guztiak zerri hutsak dira. Pello Lizarralde

Hamar aginduak, Elizaren arauak eta **agintarien** gomendioak gaitzat harturik, hiru zati horietakoren baten kontra burutzen den edozer gauza bekatua da, txikiagoa edo handiagoa, nolako tasunekoa den. Patxi Altuna

Eta gure **agintariek** munduari belauntzi batean buelta eman dion abenturazale aspertuari omenaldia egingo diote. Pako Aristi

Ohola **agintariei** erakutsirik, eta egin beharreko frogak burutu ondotik, baieztatu ahal izan zuten eski-ohola Sven Malysena zela. Josetxo Azkona

Gerora jakin genuenez, ordurako, US-Armyko zortzi helikoptero zeuden muga mexikarrean, **agintarien** baimenaren zain, gure bila etortzeko prest. Joxe Austin Arrieta

Norbanakoaz futitzen direla **agintariak** eta sistema. Hasier Etxeberria

Ez dago dudarik ni bezalako apaizek eta zu bezalako **agintariek** Jainkoarengandik jaso dugula agintea. Joan Mari Irigoien

Joera horrexegatik bakarrik balitz ere, ikasi behar lukete hemengo **agintariek** (denek: agerikoek eta ezkutukoek) euskara. Joxerra Garzia

Eutsi egin behar genion, bai, **agintariek** errotik erauzi nahi izan ziguten ametsari. Joan Mari Irigoien

2 (izenondoekin)

Hain zuzen ere, **agintari** autoktonoen erreakzioak ekarriko zuen alde biko eta bakezko trukea, kanpoko erasoa zirudienari aurre egin nahian sarritan. Koro Navarro

Azken horiek dira lekuan lekuko **agintari** politikoengan bertatik bertara eragiteko ahalmena dutenak, eta, onerako nahiz txarrerako, ideia jakin batzuk izanik, hainbat eta hainbat erabaki bideratzen dituztenak (interesen baimenaz, jakina). Iñaki Heras

Entzun duzu? **Agintari** militarren zerrenda! Hor konpon, eman diezaiotela! Noren txanda da? Anton Garikano

Eta Erregina Zuriak ere, **agintari** naziekin esne-mamitan bizi ondoren, haiek alde eginda ere bere negozio ilunekin dirutzen segitzen zuen. Alberto Ladron Arana

Ez zen **agintari** akademikorik agertu pantomimak iraun zuen bitartean. Anjel Lertxundi

Baldin **agintari** politiko edo moralen debeku arbitrarioren batek galarazten ez badu. Koro Navarro

"Gehiago gara; beraz, irabaziko dugu" esanez, Perelmanek **agintari** frantses baten ahotan ipini zuen entimemaren aurrean, bertsolaritzaren ohiko argudioa izan da, adibidez, "ez dugu arrazoirik, gutxi garelako". J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Agintari komertzial horrek ez ezik, 2004ko Fisikako Nobel saridunak ere hitz berberak agertu ditu. Edorta Agirre

Egia esan, baten batean **agintari** zibilek ere aldatu zuten kalendarioa hilabete berri bat edo beste sartuz. Pello Salaburu

Guebokinder Artximandrita **agintari** moral eta izpirituzko gorena zen, eta bere esanak diskutiezinak ziren. Jon Alonso

Prebentzio modura atxilotzen zuten Leone **agintari** politikoren bat edo erregea Turinera etortzen zen aldiro. Fernando Rey

Don Migelek **agintari** karlistekin hitz egina beharko zuen, Zaperoren kontrako neurririk ez hartzeko edo; eta, egun haietako batean, suntsitu egin zen Zapero: goizean Loiolatik abiatu, eta arratsaldean itzuli ez. Xabier Mendiguren Elizegi

Gobernadoreari, iragaitzaz bezala adierazi zion beraren probintziara iristea paradisuan sartzearen pareko zela, bideek belusezkoak ematen zutela, eta hain **agintari** zentzudunak hautatzen zituzten gobernuek laudoriorik handienak merezi zituztela. Jose Morales

Badira morala lizunduta dutenak ere: krimen guztiak onartzeko prest daude, inork suma ez dezan ez daudela ados **agintari** berriekin. Felipe Juaristi

3 (izenlagunekin)

Ahalegin batzuen ondoren, lortu zuten hartaz etsiaraztea sobietar **agintariak**. Juan Garzia

Urteak eta urteak geroago, berriz ere Estatutua mahai gainean jartzen delarik, orduan egindakoaren antzeko zerbait egingo dute nafar **agintariek**, ikusiko den bezala. Pello Salaburu

Leku hura inguratzen zuten eraikinak oso politak ziren, batik bat bi, udaletxea edo herriko **agintarien** egoitza zirudiena, eta eskola, hori minez pintatua. Jon Muñoz

Aspaldi honetako irandar **agintarien** erretratuez apainduta dago toki hau: Khomeini ikusten dut batetik, islamdarren 1979ko iraultzaren heroia, Iran osoan kale, plaza eta meskitei izena emateko ohorea izan duen buruzagi gogoratua. Jon Arretxe

Horrek, jakina, adin batetik gorakoentzat balio du, ze faxisten bihotz gogorra gorabehera, gaztetxoei ezer egingo ez zaielakoan dira legearen aldeko **agintariak**. Edorta Jimenez

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lortu ez bazuen ere, agerian utzi zuen morala zenbateraino den **agintari**-klasearen interesak babesteko arma. Askoren artean

Nazismoa gogorarazten du Schultzek: arrazismoa, gizon-emakume ahulak akabatu nahia, **agintari** klase berria boterera. Karlos Zabala

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berehala etorri zitzaizkion eliz **agintari** eta herri-agintariak bisitan. Inazio Mujika Iraola

Ontzi-**agintari** nagoenez geroztik, aitu?, inoiz ez zait falta izan kutxa bakar bat ere, edukiontzi bakar bat ere portura iritsitakoan. Jon Muñoz

Ahots txikiarekin antolatzaileetako batek adierazi didanez, hemengo kultur **agintariek** ez dute proiektu honetan sinetsi eta bidean datorrela ikustean ohartu omen dira tren honen indar potentzialaz. Edorta Jimenez

6 (izenondo gisa)

Soluzioa, beraz, jende jaun **agintariaren** indibidualismo eta despotismo diziplinatuan dago, politika anarko-aristokrata arras berri batean, "que en España se reduciría a un mínimo de ley y a un máximo de autoridad". Joxe Azurmendi

7 (adizlagun gisa)

Agamenon itsasoan gorriak ikusita jauregira itzuli zenean, Egistok hil egin zuen amarru batez, eta haren lurretan **agintari** jarri zen. Juan Kruz Igerabide

Eta itsua, soldaduen begiez ikusiko balu bezala, bere aulkitik altxatu eta soldaduen aurrean jarri zen, musikan maisu, musikaren jabe izanagatik, haien **agintari** bihurturik. Felipe Juaristi

Berak jarri ninduen Faraoiaren bigarren, haren etxeko buru eta Egipto osoko **agintari**. Jose Antonio Mujika

Ezpatak eta Fionnek bakar-bakarrik galarazi ahal izango zuten bera munduko jabe eta **agintari** bihurtzea. Joanes Urkixo

Makila bat zeraman dotoreziaz besapean, eta guri guztioi hitz egin zigun, nik egundo entzun ez bezalako ahotsa baliatuz: lakar eta **agintari**. Mirentxu Larrañaga

Eta sutatik ahots bat atera zen **agintari**: Agustin Otsoa

8 *diru-agintari iz*

Epe motzean mozkin handiak lortzeko obsesio hori, **diru**-agintarien kontrolik gabe, arras txikituta geratu zen Estatu Batuek petrolioaren bigarren krisiaren ondoren hartu zuten diru-politikarekin. Koro Navarro

Diru-agintariek erasotako parekotasuna aldezteko egindako ahaleginak, izan ere, espekulazioa elikatzen du, espekulatzaileak dibisak merke erosten jarrai bailezake, banku zentralaren erreserben ahitzeak debaluazioa noiz ekarriko zain. Koro Navarro

Europako **diru agintariak** ohartarazi zuen datozen hilabeteetan zeharkako zergen igoeren eta energia produktuen ondorioz inflazioaren urte arteko tasak aldakortasuna agertuko duela. Berria - Ekonomia

9 *goi agintari*

Kateko gainerako saltzaile guztien eta **goi**-agintari guztien aurrean. Joxan Elosegi

Terraza haietan emirraren gortea kokatuko zen, eta, haren ondoan, khan aliatuak, khanerrietako **goi** agintariak eta Turkestango subiranoen haremak. Den-dena bat etorri zela Armadako **goi** agintariek, beren medikuen aholkuz, han Lisboan egiteko agindu zutenarekin. Karlos Zabala

Kubako **goi**-agintariek eskua itsu-lapikoan sartu nahi dute; denek. Edorta Jimenez

10 *goi mailako agintari*

Liburua osatzeko, Espainiako Elizako **goi mailako agintari** batek esandako "Espainiaren batasuna ondasun morala da» adierazpenetik abiatu da Setien, hain zuzen, esaldi horri buelta eman eta kontrako tesia proposatzeko xedez. Berria - Euskal Herria

11 *herri agintari*

Teknopolis hori 1973an hasi zen garatzen, Daedeok Aranako eskualdearen garapena suspertzeko **herri agintariek** hartu zuten estrategiazko erabaki baten ondorioz. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gizarte-mailak kontuan hartu gabe, karrerak talentuari irekitzea hasieratik nagusitu zen: enperadoreak berak K.a. 196an, ordena berriro ezarri zuenetik sei urtera, agindu bat eman zien probintzietako **herri-agintariei**, herri-zerbitzurako hautagaiak merituen arabera aukeratu eta hiriburura bidal zitzaten, gobernu zentraleko ofizialek lanean ezarri edo errefusatzeko. Iñaki Mendiguren

Eskubide honek iritzi-askatasuna eta informazioa zein ideiak jasotzeko nahiz ezagutarazteko askatasuna ditu berekin, **herri-agintariek** esku sartu gabe eta mugarik kontuan hartu gabe. Berria - Harian

Nazio mailan, pertsona guztiek izan behar dute **herri-agintariek** ingurumenari buruz duten informazioa eskuratzeko aukera, baita komunitate horientzako arriskutsuak izan daitezkeen materialei eta jarduerei buruzko informazioa eskuratzeko aukera ere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez zen izango jendea, irudi eta istorio askoz groteskoagoetara ere ohituta zegoena, eskandalizatu zena; gotzaina edo beste edozein eliz edo **herri-agintari** izango zen, hau da, erakunde eklesiastikoaren glorian zuzenki interesatutako norbait. Bernardo Atxaga

Berehala etorri zitzaizkion eliz agintari eta **herri-agintariak** bisitan. Inazio Mujika Iraola

Entzun **herri-agintarien** deiadarrak, artalde-gidarien garrasiak: hondatu ditu Jaunak beraien larreak! Elizen arteko biblia

Asafen salmoa. Jainkoa zerutar izakien batzarrean jaiki da, **herri-agintarien** aurka epaia emateko. Elizen arteko biblia

12 *merkataritza-agintari*

Orain, Boeingek Airbusek jasotzen dituen laguntzak auzitan jarri dituenean, laguntza zuzenak baino zeharkakoak dira eztabaidagai, bi konpainien artean, eta Europako Batasuneko eta AEBetako **merkataritza agintarien** artean ere. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

agintari asko (5); **agintari askok** (4); **agintari bat** (7); **agintari batek** (17); **agintari baten** (12); **agintari batzuek** (10); **agintari batzuen** (5); **agintari batzuk** (5); **agintari berria** (5); **agintari berriak** (5); **agintari berriek** (16); **agintari berriek errepublika** (5); **agintari edo** (4); **agintari erlijioso** (6); **agintari erlijiosoek** (5); **agintari eta** (69); **agintari frantziarrek** (4); **agintari gehienak** (4); **agintari goren** (18); **agintari goren ali** (6); **agintari gorena** (5); **agintari gorenak** (17); **agintari gorenaren** (7); **agintari gorenek** (9); **agintari guztiak** (10); **agintari guztiei** (4); **agintari guztiek** (4); **agintari guztien** (5); **agintari irakiarrek** (6); **agintari izan** (4); **agintari judizialei** (4); **agintari judizialek** (5); **agintari militar** (13); **agintari militar eta** (4); **agintari militarrak** (4); **agintari militarrek** (15); **agintari militarren** (7); **agintari nagusi** (7); **agintari nagusia** (10); **agintari nagusiak** (6); **agintari nahiz** (4); **agintari ohi** (4); **agintari ohia** (12); **agintari ohia epaituko** (4); **agintari ohiak** (13); **agintari ohiaren** (19); **agintari ohiari** (7); **agintari palestinarrak** (4); **agintari palestinarrek** (10); **agintari politiko** (30); **agintari politiko eta** (11); **agintari politikoak** (17); **agintari politikoak eta** (7); **agintari politikoei** (10); **agintari politikoek** (26); **agintari politikoekin** (4); **agintari politikoen** (30); **agintari publikoek** (6); **agintari ugari** (5); **agintari zibilen** (4); **armadako agintari** (7); **atzo agintari** (12); **baina agintari** (7); **beste agintari** (8); **da agintari** (9); **den agintari** (4); **dira agintari** (5); **ditu agintari** (4); **du agintari** (4); **duen agintari** (4); **dute agintari** (13); **duten agintari** (4); **ebko agintari** (4); **eliz agintari** (4); **espainiako agintari** (7); **eta agintari** (66); **eta agintari berriek** (4); **europako agintari** (4); **frantziako agintari** (4); **goi agintari** (17); **gure agintari** (6); **hainbat agintari** (21); **hainbat agintari eta** (6); **herri agintari** (4); **herriko agintari** (5); **hussein agintari** (8); **hussein agintari ohiaren** (4); **hussein irakeko agintari** (4); **irakeko agintari** (11); **irango agintari** (6); **irango agintari goren** (4); **israelgo agintari** (7); **nafarroako agintari** (5); **nazioarteko agintari** (4); **saddam hussein agintari** (6); **serbiako agintari** (5); **zen agintari** (6); **zenbait agintari** (10); **zien agintari** (7); **ziren agintari** (6); **zuen agintari** (15); **zuten agintari** (10); **zuten atzo agintari** (6)

adierazi zuen agintariak (6); **aebetako agintariak** (4); **agintariak bat** (6); **agintariak bat etorri** (5); **agintariak beldur** (4); **agintariak bere** (5); **agintariak beren** (4); **agintariak bildu** (4); **agintariak dira** (5); **agintariak ere** (15); **agintariak eta** (37); **agintariak ez** (17); **agintariak ez dira** (4); **agintariak harremanetan** (4); **agintariak izan** (6); **agintariak kezkatuta** (7); **agintariak kezkatuta daude** (4); **agintariak neurriak** (4); **agintariak oso** (4); **agintariaren arabera** (5); **agintariei eskatu** (5); **agintariei eskatzen** (4); **agintariei eta** (10); **agintariei laguntza** (4); **ari dira agintariak** (4); **baina agintariak** (6); **batasuneko agintariak** (4); **beldur dira agintariak** (5); **bere agintariak** (6); **bi agintariak** (16); **die agintariei** (10); **diete agintariei** (17); **dira agintariak** (17); **dizkie agintariei** (4); **du agintariak** (6); **duten agintariak** (6); **esan zuen agintariak** (4); **eskatu die agintariei** (5); **eskatu diete agintariei** (5); **eskatu zien agintariei** (10); **espainiako agintariak** (8); **espainiako agintariei** (13); **eta agintariak** (30); **eta agintariei** (20); **eta frantziako agintariei** (4); **europako agintariak** (4); **europako agintariei** (4); **europako batasuneko agintariak** (4); **frantziako agintariak** (6); **frantziako agintariei** (8); **gobernuko agintariak** (4); **goi agintariak** (6); **gure agintariak** (7); **herri agintariei** (6); **herrialdeetako agintariak** (4); **herrialdeetako agintariei** (4); **herriko agintariak** (6); **herriko agintariei** (5); **judu agintariak** (4); **leporatzen diete agintariei** (4); **nafarroako agintariak** (6); **nazioarteko agintariei** (5); **osasun agintariak** (8); **osasun agintariei** (4); **tokiko agintariak** (4); **udal agintariak** (12); **udal agintariei** (17); **udaleko agintariei** (4); **zehaztu zuen agintariak** (4); **zeuden agintariak** (4); **zien agintariei** (22); **zieten agintariei** (10); **zion agintariak** (4); **ziren agintariak** (10); **ziren bi agintariak** (4); **zuen agintariak** (27)

aebetako agintariek (10); **afganistango agintariek** (4); **agintariek adierazi** (10); **agintariek adierazi zutenez** (5); **agintariek aintzat** (5); **agintariek argi** (7); **agintariek argi utzi** (4); **agintariek atzo** (37); **agintariek atzo baieztatu** (4); **agintariek atzo jakinarazi** (6); **agintariek azaldu** (4); **agintariek behin** (4); **agintariek beraiek** (5); **agintariek beren** (5); **agintariek beti** (4); **agintariek diote** (4); **agintariek duela** (5); **agintariek duten** (4); **agintariek egin** (5); **agintariek egindako** (5); **agintariek egiten** (4); **agintariek eman** (4); **agintariek emandako** (11); **agintariek erabaki** (6); **agintariek ere** (21); **agintariek erredakzioa** (9); **agintariek esan** (15); **agintariek esan zuten** (5); **agintariek eta** (39); **agintariek eurek** (6); **agintariek euren** (8); **agintariek ez** (110); **agintariek ez dute** (39); **agintariek ez dutela** (12); **agintariek ez zuten** (20); **agintariek ezer** (4); **agintariek ezin** (4); **agintariek hartu** (7); **agintariek hartutako** (5); **agintariek herenegun** (4); **agintariek jakinarazi** (13); **agintariek jakinarazi dutenez** (5); **agintariek jakinarazi zuten** (5); **agintariek nahi** (4); **agintariek onartutako** (4); **agintariek orain** (5); **agintariek oso** (7); **agintariek ukatu** (4); **agintariek ukatu egin** (4); **agintariek uko** (4); **agintariek uko egin** (4); **agintariek uste** (10); **agintariek uste dute** (8); **agintariek ziurtatu** (6); **alemaniako agintariek** (5); **atzo agintariek** (14); **atzo osasun agintariek** (4); **bagdadeko agintariek** (4); **baieztatu dute agintariek** (4); **baina agintariek** (16); **baina agintariek ez** (5); **batasuneko agintariek** (16); **batuetako agintariek** (6); **behar dituzte agintariek** (5); **behar dute agintariek** (8); **belgikako agintariek** (7); **bertako agintariek** (17); **beste agintariek** (4); **bi agintariek** (32); **bizkaiko agintariek** (4); **diete agintariek** (9); **diote agintariek** (10); **diren agintariek** (5); **dituzte agintariek** (21); **dute agintariek** (96); **dute europako agintariek** (4); **eaeko agintariek** (6); **ebko agintariek** (21); **egiptoko agintariek** (10); **egungo agintariek** (7); **eko agintariek** (5); **elizako agintariek** (6); **eman dute agintariek** (4); **eman zuten agintariek** (5); **errusiako agintariek** (14); **esan zuten agintariek** (6); **eskualdeko agintariek** (7); **espainiako agintariek** (49); **espainiako agintariek ez** (4); **espero dute agintariek** (6); **estatu batuetako agintariek** (6); **estatuko agintariek** (4); **eta agintariek** (50); **eta espainiako agintariek** (4); **eta frantziako agintariek** (6); **eta nafarroako agintariek** (4); **europako agintariek** (19); **europako batasuneko agintariek** (15); **ez agintariek** (4); **foru agintariek** (7); **frantziako agintariek** (33); **frantziako gobernuko agintariek** (4); **futbol agintariek** (4); **georgiako agintariek** (4); **gobernu agintariek** (5); **gobernuko agintariek** (11); **goi agintariek** (6); **gure agintariek** (11); **hango agintariek** (13); **hego osetiako agintariek** (4); **herri agintariek** (8); **herrialdeetako agintariek** (10); **herrialdeko agintariek** (9); **herrialdetako agintariek** (6); **herriko agintariek** (5); **hezkuntza agintariek** (4); **hiriko agintariek** (6); **indonesiako agintariek** (4); **indonesiako osasun agintariek** (4); **ipar koreako agintariek** (6); **irakeko agintariek** (13); **irango agintariek** (5); **iruñ israelgo agintariek** (10); **italiako agintariek** (11); **izan dute agintariek** (5); **jakinarazi zuten agintariek** (9); **japoniako agintariek** (6); **judu agintariek** (8); **khartumgo agintariek** (4); **kirol agintariek** (4); **klubeko agintariek** (4); **koreako agintariek** (7); **lekuan lekuko agintariek** (4); **lekuko agintariek** (5); **marokoko agintariek** (4); **munduko agintariek** (4); **nafarroako agintariek** (7); **nafarroako gobernuko agintariek** (4); **nahi dute agintariek** (5); **nazioarteko agintariek** (14); **nigeriako agintariek** (4); **osasun agintariek** (53); **osetiako agintariek** (4); **pekingo agintariek** (6); **ppko agintariek** (6); **riadeko agintariek** (4); **sofiako agintariek** (4); **suediako agintariek** (5); **tokian tokiko agintariek** (5); **tokiko agintariek** (8); **turkiako agintariek** (9); **txinako agintariek** (16); **udal agintariek** (30); **udaleko agintariek** (5); **uharteetako agintariek** (5); **upnko agintariek** (4); **uste dute agintariek** (8); **zehaztu zuten agintariek** (6); **zioten agintariek** (4); **zituzten agintariek** (15); **zuen agintariek** (5); **zuten agintariek** (72); **zuten atzo agintariek** (13); **zuten bi agintariek** (9)

agintariekin batera (7); **agintariekin batera** (7); **agintariekin bildu** (8); **agintariekin bildu** (8); **agintariekin eta** (11); **agintariekin eta** (11); **agintariekin harremanetan** (5);

agintariekin harremanetan (5); **agintariekin hitz** (9); **agintariekin hitz** (9); **bertako agintariekin** (4); **bertako agintariekin** (4); **espainiako agintariekin** (8); **espainiako agintariekin** (8); **eta agintariekin** (5); **eta agintariekin** (5); **hango agintariekin** (4); **hango agintariekin** (4)

agintarik eta (9); **bi agintariok** (4); **hainbat agintarik** (30); **hainbat agintarik eta** (9); **hainbat agintarirekin** (8); **zenbait agintarik** (5)

---

agintariorde *iz* agintariren ordekoa den pertsona.

AEBetako Armadako goi **agintariorde** Peter Chiarelli jeneralak, baina, arbuiatu egin zituen akusazio larri hauek. Berria - Mundua

Bagdaden, berriz, hirialdeko Guardia Nazionalaren **agintariorde** Moder Maula Abud jenerala hiltzen saiatu ziren, ekintzaile suizida batek bonba-auto bat zartarazi zuelarik militarburua garraiatzen zuen konboiaren aurka. Berria - Mundua

Bagdad eskualdeko Guardia Nazionaleko **agintariordea** hiltzen ere saiatu ziren. Berria - Mundua

---

agintaritza **1** *iz* agintea gauzatzen den erakunde edo kargua.

Ez du estakururik bere burutik gogoeta egiteko gai izan ez eta egia ikertzen buru-belarri diharduten pentsalarien **agintaritza** onartzen ez duenak. Xabier Kintana

Bere herriaren ona bilatu zuen Simonek, eta herriak begi onez ikusi zituen beti haren **agintaritza** eta ospea. Elizen arteko biblia

Behe Nafarroan, ostera, forugintza korapilatsuago gertatu zen eta 1620. urtean onetsitako foru testuan erregearen **agintaritza** eta esku-sartzea agerikoagoa da. Andres Urrutia

Urteotan, 1959an legez 1960an ere, legea eta **agintaritza** Bilbon beste inon baino estuago eta zorrotzagoak badira, baskoen matxinada berriaren zantzuak airean dabiltzalako da. Edorta Jimenez

Gero eta zabalagoa izango da haren **agintaritza**, azkengabekoa bakea. Elizen arteko biblia

Sentimendu hori eskekoen artean baino ez zuen izaten, eta haiek **agintaritza** ezagutzen zioten. Patxi Zubizarreta

Grossmanek orduan Tvardovski adiskideari bidali zion eskuizkribua, eragina baitzuen Sobiet Batasuneko agintariengan eta eskua ere bai **agintaritzan**. Felipe Juaristi

Ordain-sari Dom Pedro II.a (1825-91) Brasilgo enperadore izan zen 1840tik 1899ra, orduan armadak eta mugimendu errepublikazalearen buruzagiek **agintaritzatik** kendu baitzuten. Xabier Olarra

Diruaren salneurria zehazten duten harremanak **agintaritzatik** kanpokoak dira; gobernuek ezin dute hori zehaztu aginduzko legeen bitartez. Andres Urrutia

Lehenik alemanen eta gero ingelesen **agintaritzaren** egoitza izandakoan. Koldo Biguri

Hiru atxilotuei **"agintaritzaren** aurkako atentatua" eta "kale istiluak" egotzi dizkie Ertzaintzak. Berria - Euskal Herria

Maiatzean argitaratuko dira laguntzak jasotzeko baldintzak zehazten dituzten deialdi publikoak Euskal Herriko **Agintaritzaren** Aldizkarian (EHAA). Berria - Euskal Herria

Euskal Autonomia Erkidegoko **agintaritzak** arrazoi sendoak zituen izenaz jabetzeko. Iñigo Aranbarri

Presoak bere burua hil zuela zabaldu zuen espetxeko **agintaritzak**. Berria - Euskal Herria

Portuko **Agintaritzak** adierazi du, bere aldetik, igandean hondoratu zen ontzia salbu egon zitekeela, ekaitza hasi zenean portuan babesa hartu izan balu. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Italiako iparraldean lehenik, Alemanian eta Herbehereetan gero, hiri kopuru handi batek **agintaritza** feudalarekiko askatasuna lortu zuen, beren eskubideak adierazten zituzten gutunak jaunei erosiz. Koro Navarro

Otomandar **agintaritza** politikoa. Iñaki Mendiguren

Kursaaleko ekitaldia eragozteko "beharrezko neurriak" hartzeko agindu die, honenbestez, epaileak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari, Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzari eta **"Agintaritza** Zentralari". Berria - Euskal Herria

Eskaintza horrek, klimaren gorabeheren oso mendeko dela-eta, **agintaritza** publikoaren babes handia izaten du herrialde industrializatuetan. Koro Navarro

Gai horietan Ertzaintzak polizia judizial gisa jokatzen du, **agintaritza** judizialaren aginduetara. Berria - Euskal Herria

Parlamentua jarri zuen **agintaritza** nagusi bezala baina berak indarra eta boterea emandako Parlamentu hark txepelki erantzun zien Cromwellen eskakizunei. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hala dute erabaki inongo **Agintaritza** Gorenean. Koldo Izagirre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agintaritza-ardatz bakarra ez duen testuinguru batean [...] hegemoniaren nozioari esker deskriba daiteke nola adierazten duen herrialde nagusiak ordena desiragarria. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Administrazio-**agintaritza** eta zerbitzu publikoak: [...]. Berria - Euskal Herria

Euskadiko Garraio **Agintaritzak** oniritzia eman dio Supersur egitasmoari. Berria - Euskal Herria

Sindikatuen nahiz langileen aldarrien azpian "halako desmotibazioa" dagoela esan zuen, eta osasun-**agintaritza** horri "heltzeko tenorean" dela gaineratu. Berria - Euskal Herria

Hala dio Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Portu **Agintaritzak** sinatutako protokoloak. Berria - Euskal Herria

Herri **agintaritzak**, Jainkoaren lekuan dagoenak, gure bizitza erabiltzeko eskubidea du. Juan Martin Elexpuru

5 *goi agintaritza*

Hiriburu txiki eta jendez gainezka dagoen hori ez da **goi**-agintaritza militarreko kuartelaren iruditik urrun. Edorta Jimenez

Direktorioko **goi**-agintaritzako beste zenbait kiderekin batera. Kubako Armadako **Goi** Agintaritzako buruaren semea. Edorta Jimenez

Edozein gezur transmitituko zuten **Goi** Agintaritzara, hogei mila tonakoa hondoratu zutela, auskalo. Koldo Izagirre

Han zeuden batzarturik komandante bat eta bere **goi** agintaritza. Xabier Aranburu

6 *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*

Maiatzean argitaratuko dira laguntzak jasotzeko baldintzak zehazten dituzten deialdi publikoak **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian** (EHAA). Berria - Euskal Herria

g 113.1: **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian** argitaratutako legearen testuan ez da ageri 113.1 artikulurik. Berria - Euskal Herria

7 *herri agintaritza*

Herri agintaritzak, Jainkoaren lekuan dagoenak, gure bizitza erabiltzeko eskubidea du. Juan Martin Elexpuru

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agintaritza eta (5); **agintaritza eta** (5); **agintaritza gorena** (4); **agintaritza gorena** (4); **agintaritza publikoarekilako** (4); **agintaritza publikoarekilako** (4); **agintaritza publikoarekilako harremanei** (4); **agintaritza publikoarekilako harremanei** (4); **agintaritzak pasaialdea** (3); **agintaritzak pasaialdea biziberritzeko** (3); **agintaritzako presidente** (3); **agintaritzako presidenteak** (7); **da agintaritza** (3); **da agintaritza** (3); **enbriologiarako agintaritzak** (5); **eta agintaritza** (10); **eta agintaritza** (10); **eta agintaritza publikoarekilako** (4); **eta agintaritza publikoarekilako** (4); **eta enbriologiarako agintaritzak** (5); **eta portu agintaritzak** (3); **goi agintaritza** (3); **goi agintaritza** (3); **pasaiako portu agintaritzak** (6); **pasaiako portu agintaritzako** (6); **pasaiako portuko agintaritzako** (5); **portu agintaritzak** (12); **portu agintaritzak pasaialdea** (3); **portu agintaritzako** (9); **portu agintaritzako presidente** (3); **portu agintaritzako presidenteak** (3); **portuko agintaritzak** (7); **portuko agintaritzako** (6); **portuko agintaritzako presidenteak** (4)

---

agintaritzape *(corpusean **agintaritzapean** ia beti; ETCn **143** agerraldi) iz* adimistrazioaren mendekoa. ik **agintepe**.

Easako alkatearekin hitz egina naiz, eta bera prest legoke diru-laguntza emateko, gure herria Easaren legepean eta **agintaritzapean** jarriko bagenu. Joan Mari Irigoien

Oslo, Madril eta ondorengo guztia armen bidez egin da, baita Arafaten **agintaritzapean** ere Berria - Mundua

Guy Philippe poliziaburu ohiaren **agintaritzapean** , matxinatuek Cap-Haitien Haitiko bigarren hiri handienaren kontrola hartu zuten joan den igandean Berria - Mundua

Trebaldi militar hauek Kuroiedov almirantearen **agintaritzapean** egin ziren eta hauen karietara zen "Piotr Veliki" gerra ontzian egon. Berria - Mundua

Hain zuzen ere, bilera honetan zen finkatu Saddam Husseinen **agintaritzapeko** Iraken kontrako oldarraldiaren data. Berria - Mundua

---

aginte 1 *iz* agintzen duenaren eskua edo boterea. ik **aginpide**.

Munduko **aginte** , botere, indar eta nagusigo ororen gainetik. Elizen arteko biblia

Gure borroka, izan ere, ez da hezur-mamizko arerioen aurkakoa, goiko espiritu gaiztoen aurkakoa baizik, mundu ilun honetako **aginte** , ahalmen eta botereen aurkakoa. Elizen arteko biblia

Azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, **aginte** eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Elizen arteko biblia

Bibliak zuela autoritate gorena predikatzen zuen, gizonaren **aginte** , lege eta arauen gaineko **agintea** zegoela Bibliako hitzetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Agintea benetako soberanoaren esku bakarrik dagoenean, aberastasunek atsegina erosten dutenean eta ez **agintea** , nik ez dut ikusten hiritar bat suntsitzeko inolako beharrik. Juan Martin Elexpuru

Salomonen **agintea** Eufrates ibaitik filistearren lurralderaino eta Egiptoko mugetaraino hedatzen zen. Elizen arteko biblia

Austrasiako erresuma frankoen ekialdekoa bazen, Neustria-koa mendebaldekoa zen, eta, bien arteko borroka bat zela aitzakia, Charles Martelek bien **agintea** eskuratzea lortu zuen: franko guztien agintari bilakatu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina "mehatxaturik" egon arren, **agintea** Madrilek atxikitzen zuen, tinko. Txillardegi

Agintea lortu berri duen diktadorea ez da gaur gotzain bat aldamenean duela agertzen herriaren aurrean; aukeran nahiago du Nobel sari bat ondoan. Anjel Lertxundi

1220an erabaki larri bat hartzera behartua sentitu zen Frantzisko: Ordenako **agintea** besteen esku uztera, alegia. Askoren artean

Neure erreinura itzulirik, neure aurrekoen errege-aulkian eseri eta **agintea** hartu dut, Demetrio menperatu eta herrialdeaz jabetu ondoren. Elizen arteko biblia

Gauza bera gertatu zen Kongon eta Hego Afrikan zuriek **agintea** galdu zutenean. Gotzon Garate

"Turkiarren aitak" sultanari **agintea** kendu, kalifagoa abolitu eta Turkiako Errepublika laiko eta modernoa sortu zuen. Jon Arretxe

Zientzia askotan boterearen azpian egon da, besteak beste **agintean** zeudenek bultzatzen zutelako. Pello Salaburu

1933. urtetik Hitler zegoen **agintean** Alemanian, eta nazionalsozialismoaren indarra gero eta handiagoa zen Europako erdialdean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Penintsulako lur berriak gobernatzeko, Musaren semea -Abd al-Aziz- geratu zen **agintean** . J.M. Olaizola "Txiliku"

Arrazoi horregatik egon da zientzia **aginteari** ezinbestean loturik. Pello Salaburu

Lagun izan dituela beti **agintearen** makila eta larderia. Xabier Mendiguren Elizegi

Erromatarrek inperio handia osatu zuten Europa, Asia eta Afrikan; herrien ahultasunak eta **agintearen** tiraniak eduki zituzten gorputz izugarri haren parte guztiak batuta. Iñaki Iñurrieta

Zigorraren zuzentasuna defentatzen du: gustatzen bada eta ez, **agintea** tirania da. Joxe Azurmendi

Bi buruzagiek ekainean telefono elkarrizketak izan bazituzten ere, hau izango da Zapatero **agintera** iritsi zenetik biltzen diren lehenengo aldia. Berria - Euskal Herria

Taliban bizardunak ere indartu ziren Afganistanen, eta teologoak **agintera** eramanik, komunismoaren integrismoari erlijioaren integrismoak segitu zion. Pello Salaburu

Antisemitismo hori ez zen izan nazional sozialista alemanak **agintera** eraman zituen indarretako ahulena. Iñaki Mendiguren

Zuhurtzia eta **aginterako** gaitasuna. Berria - Mundua

Ez du **aginterik** izango zintzoen gain, hauek ez dira haren sugarretan erreko. bestea, uda parteko nagusi erpina, handimandi, eskuan **agintezko** gorosti-makila duela, haritzaren gotorrak damaion nagusitasunaz harro. Elizen arteko biblia

Agintezko jarrera. Anjel Lertxundi

Horrez gainera, legean xedatutako neurriak "gomendiozkoak" direla diote, "eta ez **agintezkoak** ". Berria - Euskal Herria

Posible litzateke legean finkatutakoak **agintezkoak** izatea enpresentzat? Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hegoaldeko erregea ahaltsua izango da; haren gudalburuetako bat indartsuago egingo da, ordea, eta **aginte** handiagoa izango du. Elizen arteko biblia

Aginte nagusia zuenarengana iristea erraza gertatu zenean, epaiek, aurrez jaurerri partikular bateko usadioak besterik eratzen ez bazituzten ere, jurisprudentzia unibertsala eratu zuten. Iñaki Iñurrieta

Koloniako **Aginte** Nagusiaren egoitza. Alberto Ladron Arana

Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadearen eta garai bereko Ekialdeko Kristandade Ortodoxoaren artean trukaturiko opari guztietatik garrantzitsuena **aginte** absolutuko estatuaren erakunde politikoa izan zen. Iñaki Mendiguren

Estatu mota ezberdinak bereizten ditut: monarkia, aristokrazia, demokrazia, **aginte** aitatiar eta despotikoa. Esteban Antxustegi

Erregearen gehiegikeriak eta nobleziaren harrokeria izan ordez, "Nazioaren Aita Lord Protektorearen" **aginte** tiranikoa eta haren inguruko elizgizon zorrotzen zurrunkeria ziren ezinegon jasanezin hartarako bide. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ordurako Frantzisko anaien gaineko **aginte** instituzionalari uko egina zen (egoera berriek gainditua), nahiz eta aginpide karismatikoa azkenera arte mantendu zuen. torturak bere **aginte** krudela erabili ohi du akusatuarengan, testigantzetan, eta baita dohakabearen familia osoan ere. Askoren artean

Beste emakume batek ez zuen historian arrasto sakonagorik utzi Alexandroren ama Olinpiak eta Muauija-ren ama Hind-ek baino, biak hilezkortu zirelarik beren seme beldurgarrien gain bizitza osoan zertu zuten **aginte** moralagatik. Iñaki Mendiguren

Aginte ekonomikoek herrialde jakin batean dagoen diru eskaintza kopuru osoa kontrolatu nahi izaten dute. Iñaki Heras

PAN Palestinako **Aginte** Nazionalak FPLPko buruak askatzeko asmoa zuen zurrumurrua zabaldu zen duela aste batzuk. Berria - Mundua

Hamasek **aginte** palestinar bateratua osatzeko eskatu du . Berria - Mundua

Bere agindupeko lurretan **aginte** militarraren tresna ez ezik, kontrol politikoaren tresna ere badira. Iñaki Mendiguren

Arrazoiak berezko **agintea** du; are **aginte** tiranikoa ere badu. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Konstituzioak presidentearen **aginte** epea lau urtetik seira luzatzen du. Pako Aristi

Esteban II.ak errege karolingiarrei eskainitako **aginte** -koroa, berriz, "La France" eta "la grandeur de la France" martxan hasteko lehen urratsa izan zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Janariak, gutxi eta finak direnean, burua argitzen dutela eta hori zela **aginte** -kargu handietan jarrita daudenei komeni zaiena. Patxi Ezkiaga

Elizondoko kotxeetan, Aldudetik, Baigorritik, Ainhoatik, igarotzen ziren buruzagi karlistak, beren uniformeekin eta **aginte** -ezaugarriekin. Koro Navarro

Ez da komeni adibidez, errektorea aldatzen den aldi bakoitzean gainetik behera aldatzea agintari guztiak, horrek hutsarte handiak sortuko lituzkeelako **aginte** katean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Duintasun paregabez estali zuen eta **aginte** -ezaugarriz koroatu: galtzaz, soingainekoz eta efodaz. Turutaren hotsera, irrintzi egiten du; urrutitik sumatzen ditu guda, buruzagien **aginte** -hotsak eta gudu-irrintziak. Elizen arteko biblia

Gure garaian Frantzian, txanponei dagokienez, hurrenez hurreneko bi ministroalditan **aginte** -gehiegikeria asko egin badira ere, erromatarrek handiagoak egin zituzten. Iñaki Iñurrieta

Behar-beharrezkoa ez den gizonetik gizonerako **aginte** -ekintza oro tiranikoa da. Juan Martin Elexpuru

Kanbioak, aurreko liburuan esan dudanez, bidea itxi die **aginte** -kolpe handiei, edota gutxienez **aginte** -kolpe handiek arrakasta izateari. Iñaki Iñurrieta

Hirian sartu eta plaza nagusian jarri zuten **aginte** -postua Babiloniako erregearen gudalburuok. Elizen arteko biblia

Itsasontzietako **aginte** -zubia gogorarazten zidan kristalezko eraikuntza bat. Urtzi Urrutikoetxea

Zibilizazio batek bere estatu unibertsalaren barruan **aginte** -itxura bat mantentzen zuen bitartean, gerra-jaun barbaroek eta haien comitatus-ak, noizbehinka, arrakastaz betetzen zuten tapoi-estatuz hornitzeko zerbitzua. Iñaki Mendiguren

Halaber, autoritatea ere bada, **aginte** -iturri nagusia, haurraren gain misterioski zertua eta bulkada batzuk arbitrarioki zapaltzen dituena. Iñaki Mendiguren

Iragan izan balu, Biarnon sartuko zen, eta Garrüzeko gazteluzainaren **aginte** -eremutik kanpo geldituko. Aingeru Epaltza

Ingurukoen mespretxua besterik ez zuen sumatzen Francescok, eta horrek oldarkorrago, **aginte** -gosetiago eta ankerrago bihurtu zuen gizon hura. J.M. Olaizola "Txiliku"

Epaileak soberano berriaren mendeku-tresna eta **aginte** -sustengu bihurtzen dira. Juan Martin Elexpuru

McAvoy kapitaina, Prudence atoiontzikoa, **aginte** -gelan zegoen, zutik, esku bat leman pausaturik. Lopez de Arana

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskaltzaindiak eta EAEko herri **aginteek** protokoloa sinatu dute. Berria - Kultura

Herri **aginteek** lagunduko dutela hitz eman zuen Azkaratek. Berria - Euskal Herria

Aginte -oihuak entzun nituenean. Txillardegi

5 tresna baten funtzionamiendua zuzentzen duen gailua.

Kontsolako **aginteen** aurrean eseri zen don Ottavio. Jon Muñoz

Igogailuari eragiten zion **aginte** elektriko baten laguntzaz. Jon Muñoz

Mendebalderaegi zoaz, Fred -erantsi zuen, **aginte** -koadroan zegoen orratz bat seinalatuz. Iñaki Mendiguren

Aginte -kontrolak izozten ari dira gaur ere; bolantea gogor-gogor dago; lema-kontrola berriz, trabatuta dago erabat! Josu Zabaleta

Bat-batean, errezel batean atzean ezkutatutako **aginte** -kutxatxo bat jo zuen begiz Perrettek. Jon Muñoz

6 aingeruen sailkapeneko maila baten izena.

Ama ospetsu eta beti Birjina Maria txit dohatsuari; Mikel, Gabriel eta Rafael dohatsuei eta espiritu dohatsuen talde guztiei: serafin, kerubin, ahalmen, nagusi, **aginte**, botere, indar, aingeru eta goiaingeruei. Askoren artean

7 ***aginte mahai***

SAS enpresak, Volkswagenentzako **aginte mahaiak** egiten dituenak, 240 langile ditu, baina lan batzordeak zuzendaritzarekin joan den urtean sinatutako malgutasun akordioak 185 langilerengan du eragina. Berria - Ekonomia

8 ***aginte makila*** agintea gauzatzen duen makila.

Bada haien artean, eskualdeko gobernariak bezala, eskuan **aginte-makila** duenik. Elizen arteko biblia

Ez da Judarengandik aldenduko errege-makila, ezta haren belaun artetik **aginte-makila** ere. Elizen arteko biblia

Indarkeria, gaiztoaren **aginte-makila**, nagusitu da. Elizen arteko biblia

Hauts egin du Jaunak gaizkileen **aginte-makila**, zapaltzailearen nagusigoa. Elizen arteko biblia

Ez utzi, Jauna, zeure **aginte-makila** deus ere ez diren idoloei. Zatitu egingo ditut Damaskoko hiri-morroiloak, kendu Bikat-Abendik buruzagia, kendu Bet-Edendik **aginte-makila** duena, eta Siriako herria Kir-era erbesteratua izango da. Elizen arteko biblia

9 ***aginte panel*** *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Jada inkontzienteki begiratzen zuen "tresna", autoa gidatzean **aginte-panela** begiratzen den bezala, aldi berean pentsatu, hitz egin edo beste gauza batzuk egiteko gai garela. ETC-literatura, saiakera

Burura eraman nituen eskuak, etsipenez ileak nahastu, eta poliziei begiratu nien, autoaren **aginte panelaren** gainean zegoen odol putzua seinalatzeaz batera. ETC-literatura, saiakera

Eta trenez joango naizela, Surexpresoan, autoko **aginte paneleko** pantailak etengabe gogorarazten baitu "Hurrengo azterketa 35 egun lehenago egin beharra". ETC-literatura, saiakera

Euritako bat ireki, aldi berean ibilgailuaren **aginte-panel** aldera makurtu, koaderno bat hartu, eta berriz bertara bota baino lehen kontsulta bat egin zuen lipar batez. ETC-literatura, saiakera

Aginte-panelean -3ºC irakurri berri du. ETC-literatura, saiakera

Erreaktore nuklearreko **aginte-panela** pentsatuta dago zerbaitek huts egiten badu abisua emateko, baina egiazko zerbait pasatzen denean, ehun aparatu jartzen zaizkizu gorriz, ordenagailuak ordu erdi lehenagoko gertaerak seinalatzen ditu eta kontrola galtzen duzu. ETC-prentsa

Badaude algoritmo batzuek enpresaren **aginte panela** ateratzen dutenak. ETC-prentsa

Aginte-panela : botoi-lerroz -argotean "busak" deritze- eta hainbat konmutazio-palankaz osatua, bideo-iturriak aukeratu ahal izateko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adibidez, kanpin-dendak urratzen hasten dira, **aginte-paneletan** pitzadurak sortzen dira eta plastikozko leihoak lausotu egiten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 ***aginte-perpaus*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Aginte-perpausak : besteek guk esandakoa egin behar dute edo guk besteek esandakoa bete behar dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina gauzak gertuagotik begiratuz gero, konturatzen gara **aginte-perpaus** horrek beste honako hau adierazten duela, bere sakoneko egitura semantikoa bailitzan: 'zu hona etortzea nahi dut' edota 'hona etortzea agintzen (edo erregutzen) dizut'. ETC-literatura, saiakera

Lehenaz gainera, perpausak baiezkoak edo ezezkoak izan daitezke. Beraz, galde-perpausak, adierazpen-perpausak eta **aginte-perpausak** baiezka nahiz ezezka eman daitezke. ETC-entziklopedia

11 ***aginte postu***

Legebiltzarreko eserleku horietatik sortzen diren **aginte postuak** (bozeramaileak nahiz lan batzordeetako ordezkariak) alderdietako zuzendaritzek aukeratu behar dituzte. Berria - Harian

Jazoera bakoitzaren aurrean zer eta nola egin erabakitzeko **Aginte Postu** Aurreratua osatu dute. Berria - Euskal Herria

Baath alderdia boterean izan zenean zenbait kristau **aginte postuetan** izan ziren, lehen ministrorde Tarik Aziz kasu. Berria - Mundua

Aginte postura heldu zirenean ez zegoen anbulantziarik, eta lurrean utzi zuten berriro. Ramon Saizarbitoria

104. Asko eta asko ikusten zituen **aginte-postuen** irrikaz. Askoren artean

Egun gutxitan, errepublikanoek herriko etxeetan ezarri zituzten beren bulego eta **aginte postuak** : Udalean, liburutegian, udal biltegian, postako bulegoetan... Jon Maia

Hirian sartu eta plaza nagusian jarri zuten **aginte-postua** Babiloniako erregearen gudalburuok. Elizen arteko biblia

12 ***aginte-zigor*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Gonapean buila eta zalaparta nahaste-borrastea gehiegitxo eta bere senaren sorotik ateratzeko arriskua sumatu bezain pronto "hau da hau inkisizioa! " garrasika boteaz **aginte-zigorra** erakusten du noiz edo noiz gure amonak. ETC-prentsa

13 ***aginte-zubi***

Baina txarrantxa-hesi lodiak eta harrizko zutabe astun biren erdian zabaltzen zen burdinazko ate arranditsuak harrapatu zidan begirada orduan, gainean itsasontzietako **aginte-zubia** gogorarazten zidan kristalezko eraikuntza bat zeukala, eta berehala zeharkatu nuen hura. Urtzi Urrutikoetxea

Eguzki-izpi batek **aginte-zubiaren** azpiko itzala nabermentzen zuen, goiko bizkarretako zerrenda luzeetan zehar, ataka-ilaretan izarniatuz. Lopez de Arana

Zenonek, **aginte-zubian** adi, makina erdian zekarren ontzia, eta hara non, Cochinos badian sartzekotan zenean, bonbardaketaz ohartu zen. Edorta Jimenez

Mintzatu zen, halaber, bertze jende guztiez, zeinak salduak izan baitzitezkeen, esklabo gisa, hango eta hemengo plantazioneetarat... harik eta **aginte-zubirat** igan, eta gaztelania gaixtoan mintzatzen hasi zen arte, guztiok ongi aditzeko moduan. Joan Mari Irigoien

14 ***agintearen zabalera*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Giza baliabideen kudeaketan, **agintearen zabalera** edo kontrolaren zabalera erakunde bateko kargu edo arduradun batek bere ardurapean dituen pertsona kopurua da. ETC-entziklopedia

15 *aginteaz jabetu*

Lasai obeditzea askoz hobe da, beraz, inperioa gobernatu eta **aginteaz jabetu** guran ibiltzea baino. Xabier Amuriza

Hainbat alditan esan eta animatu banuen ere, kontakizun haiek sekula ez ziren, 1933 an, Hitler **aginteaz jabetu** ondoan, Strasbourgera aldatu eta herriko etxeen aurrealdeetan Liberté, Égalité, Fraternité hitzak letra larrietan idazten ziren nazio bat aurkitzeak ekarri zien poz handia azaltzetik harantz luzatu. Joxan Elosegi

Porrot egite hori, dudarik gabe, Laurent Fabius gobernuburu ohi eta PSF alderdiko bigarrenarentzat da larriena, PSFren barrenean **aginteaz jabetzeko** eta, bide batez, 2007ko bozetan sozialisten hautagaia izateko aukerak handizki eragozten dizkiolako. Berria - Mundua

2002ko Venezuelan eskuineko indar politiko, militar, eta enpresarialak **aginteaz jabetzen** saiatu ziren, bortxakeria erabiliz. Txema Ramirez de la Piscina

Erregearen oniritzia lortu eta **aginteaz jabeturik**, berehala behartu zituen Jasonek herritarrak greziarren biziera hartzera. Elizen arteko biblia

16 *agintepean*

Izua zen neurririk onena halako presondegi erraldoia **agintepean** edukitzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Soldadu guztiak, konkistaturiko hirietan utzitako goarnizioak izan ezik, Feofar Khanen **agintepean** gelditu ziren bat eginak. Karlos Zabala

Bere **agintepean** herrialdea bakean zegoela eta inork ere kontra egiten ez ziola ikusirik, Demetrio erregeak nor bere etxera bidali zituen gudariak. Elizen arteko biblia

Konstantinoplako azken enperadoreak Ekialdeko eliza aita santuaren **agintepean** jartzen hasi zirenean. Iñaki Mendiguren

Etruskoak greziar bihurtuak ziren adopzioz erromatar inperiogileen **agintepean** jarri aurretik. Iñaki Mendiguren

Ordena osoa bere **agintepean** zeukan, Frantzisko dohatsuak eta anai Joan Parentek bere aurretik izan zuten bezala. Askoren artean

17 *agintepeko* *izlag*

Errusiar **agintepeko** estatuetan, ordea, garbi zegoen errusiar boterearen zeharkako ezarpena ere higuingarria zela guztientzat, komunisten gutxiengo txiki batentzat izan ezik. Iñaki Mendiguren

Kasu batzuetan inperiogileek, beren ama-hizkuntzaren gainetik, beren **agintepeko** lurretan lingua franca gisara jada erabiltzen zen beste hizkuntza baten alde egin dute. Iñaki Mendiguren

· Agintariak eta **agintepekoak**. Jenaro Garate

18 *agintepera*

Jelaz edo elurrez betetako zulo batean murgiltzen zen maiz, etxe barruko etsaia bere **agintepera** ekartzeko eta garbitasunaren soineko zuria atseginkeriaren sutetik gordetzeko. Askoren artean

Bere konbertsioaren hasieran, negu min hotzean, espirituz sendo eta kartsu, jelaz edo elurrez betetako zulo batean murgiltzen zen maiz, etxe barruko etsaia bere **agintepera** ekartzeko eta garbitasunaren soineko zuria atseginkeriaren sutetik gordetzeko. Askoren artean

19 *agintepetik*

Honela, edomdarrak Judaren **agintepetik** libratu egin ziren gaur arte. Elizen arteko biblia

Beste gizon eta emakume asko ere, deabruek tormentu eta engainu ezberdinez oinazetuak, haien **agintepetik** libre gelditu ziren aita santuaren merezimendu ospetsuei esker. Askoren artean

Guztiok dugu geure lobulu frontalen **agintepetik** aldi baterako jai hartzeko premia. Xabier Olarra

20 *goi aginte*

1937ko apirilaren 25ean, igandea, Von Richthofen, Vigon eta Velardi **goi-agindeko** militarrak Burgosen bildu ziren. Edorta Jimenez

Adibidez, **goi** aginteei muzin egiteak dakarren heriotza bortitza. Berria - Kultura

21 *guraso aginte* ik **guraso-ahal**,

Familiarenak egin, senar-emazteak liskarrean banandu eta bietako batek seme-alaben **guraso agintea** hartzen duenean izaten dira komeriak, batez ere kanpoan geratu denak aurrerantzean seme-alabekiko ardurak zelan beteko dituen zehazterakoan. Berria - Euskal Herria

Legea zehatza da **guraso agintea** zergatik galtzen den esaterakoan. Berria - Euskal Herria

22 *urrutiko aginte*

Telebista aurrean eseri eta beti pentsatzen nuen leihoa ireki eta gela egurastu beharra zegoela, baina ordurako aparatua **urrutiko aginteaz** piztuta neukan eta altxatzeko gogo guztiak alde eginda. Iban Zaldua

Sistema horren burmuina da zelula hori eta **urrutiko aginte** batez ezartzen da martxan. Berria - Euskal Herria

Baina, erromatarren operazio militarren eremua Italiatik kanpo zabaldu zenean, gerta zitekeen **urrutiko aginte** horietarako martxoan izendatutako magistratu bat lanean hasteko gai ez izatea urtaroa oso aurreratuta egon arte. Iñaki Mendiguren

Nire etxe barruan gaude, zailena egina dago, ondorengoa ume-kontua da; aparatua piztu du, **urrutiko agintea** hartu eta jirabuelta bat egin du kanal guztietatik, nigana begiratu du zerbait esateko ,baina ahozabalik geratu da: larrugorrian nago bere aurrean! Barregura puxkat eman dit jarri duen inozo aurpegiak, baina haren kirol-praken azpian antzematen den handituak ondo goazela adierazten dit. Juan Martin Elexpuru

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aginte eta (13); **aginte hori** (4); **aginte judizialaren** (7); **aginte kontrolak** (6); **aginte maila** (5); **aginte makila** (43); **aginte militarrak** (5); **aginte militarraren** (4); **aginte nazionala** (11); **aginte nazionalak** (48); **aginte nazionalak pan** (5); **aginte nazionalarekin** (6); **aginte nazionalaren** (21); **aginte nazionalari** (15); **aginte nazionalean** (6); **aginte nazionaleko** (235); **aginte nazionaleko atzerri** (5); **aginte nazionaleko gobernu** (4); **aginte nazionaleko gobernua** (6); **aginte nazionaleko lehen** (46); **aginte nazionaleko presidente** (68); **aginte nazionaleko presidentea** (11); **aginte nazionaleko presidenteak** (11); **aginte nazionaleko presidentearen** (4); **aginte nazionaleko presidentetzarako** (5); **aginte nazionaleko segurtasun** (8); **aginte organo** (5); **aginte organoak** (4); **aginte organoen** (4); **aginte organoetan** (4); **aginte politiko** (6); **aginte politikoa** (5); **aginte zentral** (4); **agintea bere** (7); **agintea duen** (4); **agintea eman** (5); **agintea eskuratu** (10); **agintea eskuratzeko** (4); **agintea eta** (13); **agintea ez** (5); **agintea ezarriko** (4); **agintea ezartzen** (5); **agintea ezartzen diete** (4); **agintea galdu** (11); **agintea hartu** (23); **agintea hartu zuen** (5); **agintea hartu zuenean** (4); **agintea hartzeko** (4); **agintea hartzen** (4); **agintea lortu** (6); **agintea uzteko** (4); **agintea zalantzan** (4); **agintea zalantzan jartzen** (4); **arafat palestinako aginte** (12); **atzo palestinako aginte** (6); **behin behineko aginte** (4); **behin behineko agintea** (4); **behineko aginte** (4); **behineko agintea** (4); **bere aginte** (5); **bere agintea** (21); **beren agintea** (14); **beren agintea ezartzen** (5); **da palestinako aginte** (4); **dio palestinako aginte** (4); **du aginte** (6); **du agintea** (9); **du palestinako aginte** (4); **duen aginte** (5); **edo aginte** (4); **erredakzioa palestinako aginte** (13); **estatuko aginte** (4); **eta aginte** (43); **eta agintea** (16); **eta palestinako aginte** (12); **euren agintea** (4); **gain agintea** (7); **gainean agintea** (4); **gaineko agintea** (7); **husseinen agintea** (5); **irakeko aginte** (5); **kutxako aginte** (4); **mandiek beren agintea** (4); **nire aginte** (4); **palestinako aginte** (352); **palestinako aginte nazionala** (10); **palestinako aginte nazionalak** (48); **palestinako aginte nazionalarekin** (6); **palestinako aginte nazionalaren** (21); **palestinako aginte nazionalari** (15); **palestinako aginte nazionalean** (6); **palestinako aginte nazionaleko** (235); **pan palestinako aginte** (148); **partidaren agintea** (4); **saddam husseinen agintea** (5); **salomonen agintea** (4); **urrutiko agintea** (4); **zuen aginte** (9); **zuen agintea** (13)

agintean dago (5); **agintean dagoen** (25); **agintean dagoenetik** (5); **agintean dauden** (13); **agintean daudenek** (4); **agintean daudenen** (4); **agintean den** (28); **agintean den alderdi** (8); **agintean den ump** (5); **agintean diren** (4); **agintean egon** (53); **agintean egon den** (15); **agintean egon diren** (11); **agintean egon ondoren** (4); **agintean egon zen** (7); **agintean eta** (4); **agintean ez** (4); **agintean izan** (12); **agintean jarraitzea** (4); **agintean jarraitzeko** (5); **agintean zegoen** (14); **agintean zegoenean** (8); **agintean zela** (6); **agintean zelarik** (5); **agintean zen** (4); **agintearen aurka** (9); **agintearen aurkako** (12); **agintearen aurkako atentatua** (5); **agintearen eta** (6); **agintearen kontrako** (5); **aginteari atentatua** (6); **aginteari eusteko** (4); **aginteaz jabetu** (5); **agintera iritsi** (20); **agintera iritsi zenean** (4); **agintera iritsi zenetik** (7); **agintetik alde** (5); **agintetik bota** (10); **agintetik botatzeko** (5); **agintetik kendu** (17); **agintetik kendu eta** (4); **agintetik kentzea** (5); **agintetik kentzeko** (15); **arte agintean** (10); **arte agintean egon** (5); **baina agintean** (4); **behin behineko agintearen** (5); **behineko agintearen** (5); **bere agintearen** (6); **bere agintepean** (11); **bere agintepeko** (6); **bush agintetik** (4); **castro agintetik** (4); **da agintean** (5); **dago agintean** (4); **du agintean** (5); **egun agintean** (7); **egun agintean den** (5); **eta agintean** (9); **eta agintearen** (10); **eta agintez** (4); **herri agindeen** (5); **hussein agintean** (9); **hussein agintean zelarik** (4); **hussein agintetik** (9); **iritsi zen agintera** (4); **khartumgo agintearen** (5); **orain arte agintean** (8); **pp agintean** (10); **ppk agintean** (4); **presidentea agintetik** (7); **saddam hussein agintean** (7); **saddam hussein agintetik** (7); **talibanak agintetik** (4); **urteotan agintean** (6); **urtez agintean** (11); **urtez agintean egon** (8); **zegoen agintean** (5); **zen agintean** (5); **zen agintera** (4); **zuen agintean** (4)

---

agintealdi ik **agintaldi**.

---

agintean *adlag* gobernuan edo instituzio bateko buruzagitzan.

1996 eta 2000. urteen bitartean **agintean** egon zen mandataria, beraz, agintera itzuliko da lau urteren buruan. Berria - Mundua

Sadam Hussein Irakeko buruzagi ohia **agintean** egon zenean egindako krimenak epaitzea da batzordearen helburua. Berria - Mundua

80 ko hamarkadaren bukaeran idatz zitekeen beharbada nafar euskaldunak gure Gobernuak zanpaturik sentitzen ginela (eta oraino ez zen UPN **agintean** !). Aingeru Epaltza

Franco biriketako gaixotasun batek jota hil zen, 1975eko azaroaren 20an, **agintean** ia berrogei urte eman ondoren. Alberto Ladron Arana

Esku-hartze politikak, gainera, are ezarri ziren -eta ezartzen dira oro har-, garai bakoitzean **agintean** den indar politikoaren aukera elektoralak maximotzeko helburuaz, nazioaren ongizatea kalkulu arrazional baten arabera maximotzeko baino. Iñaki Heras

Baina, hala ere, beso luzea zuen, **agintean** zegoen oraindik, eta botere handia zuen. Agustin Otsoa

Eta are gutxiago 35 urtez **agintean** jaun eta jabe, eta ohean amoranteen eta sexu-gutixien jostailu, ibili ondoren. Txillardegi

Garai berriak ziren, aurpegi berriak zeuden **agintean** Madrilen ere, ardura konpartituak eta lankidetza zintzoak Madrilgo sozialista eta Ajuria Eneko jeltzaleen artean... Jokin Urain

Hitler **agintean** zen ordurako, eta idazleak iheslariak ziren denak. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **agintean dago** (5); **agintean dagoen ump** (3); **agintean dagoenetik** (5); **agintean daramatzan** (3); **agintean dauden** (13); **agintean daudenek** (4); **agintean daudenen** (4); **agintean den alderdi** (8); **agintean den ump** (5); **agintean diren** (4); **agintean egon den** (15); **agintean egon diren** (11); **agintean egon ondoren** (4); **agintean egon zen** (7); **agintean egon ziren** (3); **agintean egongo** (3); **agintean egoteko** (3); **agintean ez** (4); **agintean izan den** (3); **agintean izango** (3); **agintean jarraitzea** (4); **agintean jarraitzeko** (5); **agintean jarritako** (3); **agintean zegoen garaian** (3); **agintean zela** (6); **agintean zen** (4); **agintean zeuden** (3); **arte agintean egon** (5); **baina agintean** (4); **da agintean** (5); **dago agintean** (4); **du agintean** (5); **egun agintean den** (5); **ere agintean** (3); **gaur egun agintean** (3); **gobernuan agintean** (3); **hussein agintean zegoenean** (3); **hussein agintean zelarik** (4); **orain arte agintean** (8); **pp agintean egon** (3); **ppk agintean** (4); **psoe agintean** (3); **saddam hussein agintean** (7); **turkian agintean** (3); **urteotan agintean izan** (3); **urtez agintean egon** (8); **zegoen agintean** (5); **zen agintean** (5); **zuen agintean** (4)

---

agintebide *iz* agintzeko bidea.

Benetako **agintebideak** estatu espainolaren esku daude. Berria - Euskal Herria

---

agintedun **1** *izond/iz* agintea duena.

Esnatutakoan gizon bat zuen zain, gizon handia, begirada batera **agindeduna**. Felipe Juaristi

-Jantzi egik jakanarrua -agindu nion gero nire buruari, ni baitan pertsona bi banintz legez; **agindeduna** bata, haren menekoa bestea. Edorta Jimenez

Mundu honetako erregeak altxatu dira, eta **agintedunek** elkar hartu dute Jaunaren eta berak aukeraturiko Mesiasen aurka. Elizen arteko biblia

Informazio eskubidea oinarrizko giza eskubidea izanagatik, **agintedunek** egunero zanpatzen eta leherrarazten duten printzipioa da. Txema Ramirez de la Piscina

Herrietako erregeek menpean hartzen dituzte herriok, eta **agintedunek** "Ongile" izena nahi izaten dute berentzat. Elizen arteko biblia

Menpeko zintzo eta onak **agintedunaren** nahia ezagutzen eta gordetzen duenean, ardura txikia behar du nagusiak hartaz. Askoren artean

Airean ahotsak entzuten dituzten **agintedun** eroek urte batzuk lehenagoko idazle akademiko kaskar baten buruan sortutako utopiak distilatzen dituzte. Iñaki Heras

2 (adizlagun gisa)

Jesu Kristo gure Jauna errege bizi baita, garaile eta **agintedun** , betieran Jainko aintzaz betea, menderen mendetan. Askoren artean

---

agintegabetu, agintegabe(tu), agintegabetzen du *ad* aginte gabe utzi.

William Delahunt senatari demokratak joan den ostegunean salatu zuenez, AEBetako Finantza Ministerioak soilik lau langile jarri ditu Irakeko **agintegabeturiko** gobernuaren eta Al Kaeda sarearen legez kanpoko kontuak ikertzen. Berria - Mundua

---

agintegune *iz* agintea gauzatzen den gunea.

Bagdaden azkenik, lehergailuak jaurti zituzten AEBen **agintegunearen** aurka. Berria - Mundua

Oldarra goizeko 10:55ak inguruan (08:55ak Euskal Herrian) gertatu zen, lau mortero lehertu zirelarik Irakeko Guardia Nazionalak Samarran duen **agintegunearen** kontra. Berria - Mundua

Poloniaren manupean den dibisioaren **agintegunean** ibili zen Casey, eta bertako buruzagi nagusi Mierczyslaw Bienek jeneralarekin hitz egin zuen. Berria - Mundua

Euskalkietan diren bereizgarri asko eta asko gure herriaren egoera petralaren ondorio direla: administrazioz zatituta egotearena, euskara **agintegunetan** arrotz -eta etsai ere bai sarri- izatearena, irakaskuntzan zokoratuta edukitzearena, [...]. Koldo Zuazo

Dirugune bat lehertuko nuen, XX. mende bukaerako egiazko **agintegune** bat. Hasier Etxeberria

---

agintekera *(ETCn **5** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **agintera** agertzen da) iz* agintzeko era.

Raimundo Silvak esan beharko lioke bere buruari, Maria Sarak bart Escadinhas de S. Crispimen esan zuen bezala, Goazemak, baina orain beste tonu batez, **agintekeraz** , Goazemak, idatzi, aurreratu, garatu, laburtu, komentatu, biribildu. Jon Alonso

---

agintekeria *iz* autoritarismoa.

ohartzekoa da erlijioaren munduan sineskeriak eurrez aurkitzen direla eta, fedearen aitzakian, Jainkoaren ordez sasijainkoak gurtzea, eta menderakuntza eta **agintekeria** onartzea askotan gertatu izan dela Askoren artean

---

agintekide *izond/iz* agintean kide dena.

Jaurlaritzan **agintekide** dituzten alderdiek ez badute Lurzoruaren lege zirriborroaren inguruan aurkeztu berri duten gogoeta aintzat hartzen, EAJk dagoen hartan onartuko du araudia. Berria - Euskal Herria

---

agintepe *(ETCn **1.034** agerraldi)* **1** *iz* agintearen mendekoa. ik **agintaritzape**.

Navarreria guzia kasik lur joa gelditu huan, Artoisko Kontea buru zuela armada frantsesak inguratua, eta Garcia jaunak, tragedia beltzak azkena jo baino lehen, bere **agintepeko** guziak bertan deseginda utzirik, jozak ospa atzeko ate ttikitik aterata Santio bideko galtzada barrena gaztelako mugaz haruntz. Patziku Perurena

Agintariak eta **agintepekoak** . Jenaro Garate

Hauek guztiak idatziz eman zituen Mardokeok, eta gutunak bidali zizkien Asuero erregearen **agintepeko** probintzia guztietako judu guztiei, hurbilekoei bezala urrutikoei. Jose Antonio Mujika

Zaldun guztiak saiatu ziren Eskalibur ezpata ateratzen; izan ere, elezaharrak zioenez, ezpata hura ateratzen zuen zalduna Bretainia Handiko errege bihurtuko zen, eta bere **agintepean** bilduko zituen erresuma txiki guztiak. Juan Kruz Igerabide

Berek eutsi egin zioten, Beldarrain komandanteak, mekanikaria izan arren, aldatzen jakin zituelako defentsa sistema zaharrak, lehen gerraren garaian heziak ziren militar

ezgai batzuen **agintepean** osatuak. Ramon Saizarbitoria

Eta lege hau artoski gogoratuko -ez baita hori neke- eta begiratuko duenak, denbora guti barne, bere egintzak Arrazoiaren **agintepean** , gehienetan, bideratzen ahalko ditu. Piarres Xarriton

Horrela, kristau-fededunek, fedeak bere baitan daraman mundu eta bizitzaren ikuspegia elizako txokotik atera eta, Elizaren **agintepeko** ezkutu izatetik, azterketa librerako gai izateko gauza zela konturatzeko aukera izan zuten. Askoren artean

Show erotiko eta pornografikoz beteriko kalea zen 42. kale ospetsua erabat aldatu da Giulianiren **agintepean** . Harkaitz Cano

2 ***agintepean*** *adlag*

Eta nor zen Miel denak **agintepean** edukitzeko, orain hau, gero hori eta bihar beste hura egin zezatela agintzeko? Joxemari Urteaga

Izua zen neurririk onena halako presondegi erraldoia **agintepean** edukitzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Agintepean dituen beste 3.700 soldaduak "geroago" erretiratuko badira ere, "hiritik gertu" geratuko direla esan zuen. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere agintepean** (11); **haren agintepean** (3)
> **bere agintepeko** (6)

---

agintepe- ik **aginte 8**; **aginte 9**; **aginte 10**; **aginte 11**.

---

agintera *iz* agindua, eskaera edo aholkua adierazten duen aditz era.

-Egon hor! - **agin**teran Joanes ene arerioaren boza ezagutu nuen. Edorta Jimenez

Denetariko izenak zituzten, haietako asko **agin**teran: Tiro egizak, Irain egizak, Hegan egizak, Sua, Akabazak, Suntsizak, Hondazak, Errezak, Enara, Sari, Jagole. Jose Morales

Nafar-zuberotarrean **agin**teran zakitzat izan, lapurtarrean zazkiat, giputzean zakizkit, bizkaitarrean zakidaz, gutxi ardura du. Koldo Zuazo

---

aginterri *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* erreinua, erresuma.

Eta presio-mota partikular hau enpirikoki aztertzeko biderik onena arriskupeko marka horiek beren komunitateen historian jokaturiko papera aztertzea da, komunitate horien **aginterrien** barrualdean lurralde babestuagoek jokaturiko paperarekin konparatuz betiere. ETC-literatura, saiakera

Inperio (latinezko "imperium" hitzetik ekarria), **aginterri** edo jaurgo etnologikoki eta/edo kulturalki ezberdinak diren lurralde zabalak menpean dituen estatua da, gainera eskualde batean itzala edo botere hegemonikoa duena ETC-entziklopedia

XVI. gizaldian, luteranismoa Alemaniatik (sasoi hartan Germaniako Erromatar **Aginterri** Santuan) Danimarkara, Norvegiara, Suediara, Suomira, Letoniara, Estoniara eta Islandiara hedatu egin zen. ETC-entziklopedia

---

agintezale *izond/iz* agintearen zalea dena.

Zer egin zezakeen fede gutxiko soldadu **agintezale** batek urrutiko jentilen lurralde haietan? J.M. Olaizola "Txiliku"

Grinatsu eta **agintezale** ospea du eta hainbat liburu idatzi ditu. Berria - Mundua

---

agintza 1 *iz* promesa, zerbait egingo dela aginduz ematen den hitza. ik**agintzari**; **hitzemate**.

Hori ikusirik, **agintza** bat egin zion Girolamo Cardanok: zure asmakizunak erakusten badizkidazu, ez bakarrik nik ez ditut sekula argitaratuko, baizik eta zifratan apuntatuko ditut neuretzat, ni hil ondoren inork uler ez ditzan. Jon Muñoz

Hilabeteko epea izango du horretarako eta atzo egin zituen lehen adierazpenetan, politika, ekonomia eta segurtasun alorretako erronka handiei aurre egiteko gai izango den talde indartsu bat eratzeko **agintza** egin zuen Al Malikik. Berria - Mundua

Agintza gehiegi egin zaizkigu hainbat bileratan, eta hitzemate horietatik bakar bat ere ez da bete. Berria - Harian

Agintza bat egin nuen, eta **agintza** hori hausten badut, infernuan erreko naiz. Oskar Arana

Edozein pertsonak, unibertsitatek, edo ikastetxek makur uste baldin badu beren botu, zin egite edo **agintza** guztiak horrelako zezen lasterketekin sainduen ohoretan edo nahi den eliza jaietan edo bestetan egiten ahal direla, ez dituzte behar josteta horiekin ez ospatu ez ohoratu. Piarres Xarriton

Senarrak berriro ez zela gertatuko esanez malkotan egin zion **agintza** errefusatzeko indarrik ez zuen izan. Oskar Arana

Ezkontza ez zen bali: ondoko urtetan ikasirik sakramenturik gabe zirela, berriz itzuli biak elizarat, makur horren xuxentzerat, eta Garnier jaun erretorak benedikatu zituen heien **agintza** berriak. Patziku Perurena

Beraz, **agintza** xumeari gerokoan Zin guztizkoak jarraitzean. Txillardegi

2 ***agintza hautsi gabe***

Une honetan nonbaiten badago, beraren alabaren aurpegian dago, neskato txikiaren berarenganako leialtasunean, non dagoen ez esateko Lucyren **agintza hautsi gabean** . Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **agintzak erreberritu dituzte** (5); **agintzak erreberrituko dituzte** (3); **bataioko agintzak erreberritu** (5); **bataioko agintzak erreberrituko** (3); **beren bataioko agintzak** (4)

---

agintzaile 1 *izond/iz* agintzen duena; agintzen duen pertsona.

Osaba **agintzaileak** agindurik, haurgaldu sifilidun bat familian ez zutela onartuko esan zuten. Gotzon Garate

Eskaera errepikatu zuen poliziak, ahots **agintzailean** , eta taberna-mutil bat heldu zen, lasterka, koparekin. Irene Aldasoro

Batzuen ustelkeria eta besteen jarrera **agintzailea** ikusita, ez da arraroa jendea etsita egotea. Berria - Euskal Herria

Lapurtarrek oso aitzin-multzo tinkoa eta **agintzailea** dute. Berria - Kirola

Giro **agintzaileak** batzuentzat eta besteentzat agintzen bide zuen. Joxe Azurmendi

Agintzaile -ahotsa zuen, ile marroi ugari eta sendoa, eta aurreko hortzak handi samarrak. Iñaki Mendiguren

Mari-**agintzaile** bat haiz eta mari-zirtzil bat. Joan Mari Irigoien

Tiro bat ematen dio, eta Berendiari errieta egitera ausartu den buruzagi **agintzailea** betiko bizitzara (ala betiko heriotzara?). Josu Zabaleta

Jordaniar hau zen dagoeneko Irak okupatzen duen koalizio militarrak herrialdean azken hilabeteotan gertatutako eraso odoltsuenen **agintzaile** nagusitzat jotzen zuena. Berria - Mundua

- **agintzaile** esan zuen Basurtokoak, bazekieneta, nik esan barik ere, zer denbora geneukan egin beharrekoak egiteko; gero zurtz geratuko ginen, ekaitzaren mende. Edorta Jimenez

-Ez duzue niri esan beharrik -hasi zen hizketan, garai bateko apaizek pulpitutik hitz egiten zuten bezala, hau da, ahots sendoz eta **agintzaile** - hona etortzera zertarako gonbidatu zaituztedan entzuteko irrikitan zaudetela. Aitor Arana

Buruzagi xiitek eta AEBek Al Kaedarekin ustez lotutako Abu Mussab al-Zarkaui jordaniarra jo dute atentatuen **agintzaile** . Berria - Mundua

2 promesten duena.

Gizakien gidariak paradisu- **agintzaileak** izan dira beti eta alde guztietan. Josu Zabaleta

3 ***mari-agintzaile*** *izond adkor*

Mari -agintzaile bat haiz eta mari-zirtzil bat. Joan Mari Irigoien

---

agintzari *iz* zerbait egingo dela aginduz ematen den hitza. ik**agintza**, **promes**.

Eta hau da Kristok egin zigun **agintzaria** : betiko bizia. Elizen arteko biblia

Gogojardunak ematen ari denak ikusten badu hartzen ari dena alaitsu eta txit gartsu dabilela, esan behar dio ez dezala aurretik egin **agintzaririk** ez zinitzik, ongi pentsatu gabe eta itsumustuka. Patxi Altuna

Hau ez da agindu bat, askotan uste izaten den bezala, fedeko artikulua da, Jainkoak emandako irakaspena, gizakiak aurki ahal ditzan bere sofrikizunetan, bere ekintzetan eta bere bizitzan atseginak eta poztasunak; beraz, **agintzaria** gehiago da, agindua baino. Joan Mari Lekuona

Lehenago ez zenutela Mesiasik, ez eta parterik ere Israel herriko eskubideetan; ez zenutela zerikusirik Jainkoaren **agintzari** eta itunekin, eta itxaropenik gabe eta Jainkorik gabe bizi zinetela munduan. Elizen arteko biblia

Jainkoak Abrahami zin eginiko **agintzaria** betetzeko garaia hurbildu ahala, herria haziz eta ugalduz joan zen Egipton. Elizen arteko biblia

Izan atsekabean eroapen handiko, eta seguru egon, beteko baitu Jaunak bere erabaki eta **agintzaria** . Askoren artean

Otoitz eta borroka honetan ziharduelarik, betiko biziaren **agintzaria** hartu zuen Jaunagandik konparazio honen bidez: [...]. Askoren artean

Gorputz-ariketek ezer gutxirako balio dute; jainkozaletasunak, berriz, guztirako balio du, oraingo eta geroko biziaren **agintzaria** baitu berekin. Elizen arteko biblia

Legea betetzen dutenak bakarrik balira oinordeko, hutsean geldituko litzateke sinesmena eta baliogabe **agintzaria** . Elizen arteko biblia

Jaunak **agintzaria** berritu Abrahami. Elizen arteko biblia

Beren oinordekotza mundua izango zutela agindu zien Jainkoak Abrahami eta ondorengoei. **Agintzari** hau, ordea, ez zegokion legea betetzeari, sinesmenak duen salbamen-indarrari baizik. Elizen arteko biblia

Leiala da Jainkoa bere **agintzarietan** . Elizen arteko biblia

Predikatzen hasi zenean, pobretasunaren argi-zuzia ipini zien eskuetan fedearen atetik sartzen zirenei eta huraxe ezarri zuen etxearen lehen oinarritzat; eta beste bertuteei zeruetako erreinua **agintzari** bezala eskaintzen die. Askoren artean

Eta heriotzara gehiago ez itzultzeko piztu duela hilen artetik, honela zuen esana Jainkoak: Davidi eginiko **agintzari** santu eta fidagarriak beteko dizkizuet. Elizen arteko biblia

Zuek aitor ezazue, bihotz-bihotzez eta gogo osoz, Jaunak, zuen Jainkoak, eginiko **agintzari** ederretatik batek ere ez duela huts egin: dena bete zaizue; Jaunak hitz emandako ezer ere ez da hutsean galdu. Elizen arteko biblia

Zenbaterainoko poza eta zoriona uste duzu sentitu zuela halako **agintzari** zoragarria hartu zuen gizon dohatsuak? Askoren artean

Fedea zuelako, bere herria utzi eta atzerritar gisa bizi izan zen Jainkoak agindutako lurraldean; oihal-etxolatan bizi izan zen, Jainkoaren **agintzari** bera hartu zuten Isaak eta Jakob biziko ziren bezalaxe. Elizen arteko biblia

Jaunak zorion- **agintzaria** Jerusalemi. Elizen arteko biblia

Salbamen- **agintzaria** Ebed-Melekentzat. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **agintzari hau** (3)
> **biziaren agintzaria** (3)
> **bere agintzariak** (3); **jainkoaren agintzariak** (4)
> **jainkoaren agintzariaren** (4)

---

agintze *iz* norbaitek, duen eskuaz baliaturik, egin behar duena norbaiti esan edo adieraztea.

Ariel Sharon lehen ministroarengandik txikizio hauek areagotzeko manua jaso du Tsahalek eta **agintze** honen obratzeari ekin zioten atzo soldadu israeldarrek. Berria - Mundua

-Jauna -Santxok berriz -abere talde bati bederen, **agintze** hori gauza ona izango da horregatik, nik uste. Patxi Ezkiaga

Lehen zatian Brive aritu zen Baionaren zelaian oren erdi batez, eta Donguyren entsegua ukan zuen **agintze** horren fruitua. Berria - Kirola

Oro har, egia baita itunek trukean ondasunen bat hartu denean lotzen dutela, eta **agintze** ekintza eta agindutakoa zilegi direnean. Esteban Antxustegi

Termino batetik besterako aldaketa **agintze** hatsapen batek erregulatua datorrela. Isabel Arrigain

---

agiraka *(orobat **agirika** g.er.)* **1** *iz* errieta.

Agiraka bat eraginkorrago burutsuarentzat ehun zartada burugabearentzat baino. Elizen arteko biblia

Badira **agiraka** desegokiak, bai eta zuhurtzia adierazten duen isiltasuna ere. Elizen arteko biblia

Tomek ezin konta ahal aldiz eskatu dio barka, baina Pamelak, hala ere, **agiraka** jarraitu du. Oskar Arana

Bera Cristina zela erantzunda musu bi eman zizkion, nebak **agiraka** etxera bidali orduko. Urtzi Urrutikoeetxea

Begoña, aldiz, gogaiturik zegoen senarraren akusazioez, haren **agiraka** amorratu eta errepikatuez. Xabier Montoia

Behin baino gehiagotan esan izan diot amari, oinarririk gabeko **agiraka** sail bat entzun ondoren: [...]. Josu Zabaleta

Emakume bular-harro bat ari zen atetik, **agiraka** itxuran, baina adarra joz. Anjel Lertxundi

Ene seme, ez baztertu Jaunaren zentzarazpena, ez eta adorea galdu ere **agiraka** egiten badizu. Elizen arteko biblia

Nagusiak ez zuen ulertu ukoaren zergatia, eta hitz zakarrez **agiraka** egin zion. Jose Morales

Mindurik, lagunek **agiraka** egiten zioten kate artean pozik zegoelako, eta burugabe eta erotzat jotzen zuten. Askoren artean

Hotsak gogaiturik, Raimundo Silvak zeharka egin zuen so, **agiraka** eginez bezala, ez da dudarik, egiten du gogoeta, atzera jotzeko tentazioa giza espezieen konstantea dela. Jon Alonso

Maite duenari egiten baitio Jaunak **agiraka** , aitak seme kuttunari bezalaxe. Elizen arteko biblia

2 *adlag* errieta eginez.

Niri **agiraka** ematen du egun osoa. Lopez de Arana

Irudia **agiraka** hasi zitzaion telegan iritsi berria zen mujikari, eta puska luze batean Txitxikovek ezin izan zion igarri gizonezkoa ala emakumezkoa zen. Jose Morales

Egunsentian, bizarra nahasia, arropa urratua zuen agure bat etorri zitzaion **agiraka** , eta ukabilak estutu zizkion. Koro Navarro

Ez da beti **agiraka** ari, ez du haserrea luzaro gordetzen. Elizen arteko biblia

Ez zait komeni **agiraka** ibiltzea. etxe anitzetan gertatzen den bezala, egunero ikusten dugunez, neba-arrebak ere elkarrekin liskarretan eta **agiraka** dabiltza gure logeletan, horrenbeste urte daramagu-eta haurride guztiak batera bizitzen. Javi Cillero

Bost ordezkariak dendan sartu zirenean, erregea, taxu itxikoa, beso boteretsuak bular gainean gurutzatuak, **agiraka** ekin zien amorruz. Jon Alonso

3 *agira egin* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Agira "baladronada"? agirakatu "baladronear"; cf. **agira egin** "reprender" (1656). ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *agiraka egin*

Damuak garaitu zuen, **agiraka egiten** zion bere buruari bere ezkontza, bere bizibidea eta bere izena hondatu izanagatik. Oskar Arana

Azkenik, gauzen izaerak abots goran gutariko norbaiti honela **agiraka egingo** baligu: ´Zerk larritzen hau horrenbeste, hilkor hori, horren negar garratzari ekiteko? Xabier Amuriza

Nagusiak ez zuen ulertu ukoaren zergatia, eta hitz zakarrez **agiraka egin** zion. Jose Morales

Biak **agiraka egitekoak**. Edorta Jimenez

Ardo askoko oturuntzetan, ez **agiraka egin** lagun hurkoari, ez mesprezatu alai samar dagoenean; ez esan hitz mingarririk, ez eta estu hartu ere zeure eskariekin. Elizen arteko biblia

Haren egoerak zuzendariaren gelatik lasterka irten berri den ikaslearena gogoraraztzen zuen: izan ere, **agiraka egiteko** deitu dio zuzendariak ikasleari, baina, horren ordez, inola ere espero ez bezalako jipoia eman dio. Jose Morales

Maiatzeko egun bat hartu zuen alde egiteko; don Blas Carreño eta epailea agurtu zituen, eta liskar bortitz bat izan zuen Sanchezekin, etsaia bazihoala ikusi arren garrazki **agiraka egiteko** bezain moldegabea izan baitzen, izan ere. Josu Zabaleta

Hark men egin dio eta, erregeak **agiraka eginik**, hondarreko orobat zin egin, bere osabaren aurrean, ez diola sekula gehiago arma-bidean ekingo berorren maiestatearen aurka. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **agiraka egin** (8); **agiraka eginez** (3); **agiraka egingo** (3); **agiraka egiten zion** (3)

---

agirakaldi *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* agiraka, errieta.

Ikaskideen artean jertserik dotoreenak eramaten zituen Anderrek, baina tarteka inork ez bezalako **agirakaldirik** zentzugabeenak jaso ondoren. ETC-literatura, saiakera

---

agirakatu, agiraka(tu), agirakatzen *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* du *ad* agiraka egin.

Bestalde, badirudi transferetzia ez dela gaizki eman, gauza lotsagabeetarako joera duena eta horrelakoetan garapen handia duena **agirakatu** behar baita, eta horrelakoa desira da bereziki, eta haurra ere bai. ETC-literatura, saiakera

---

agiri 1 *iz* zerbait frogatzeko, zerbaiten berri emateko balio duen izkribua; adierazpena.

Bazkaldu aurretik, **agiri** batzuen fotokopiak egin behar zituela eta, denda baten bila hasi zen. Iban Zaldua

Bihar **agiri** bat aterako du etsaiak. Koldo Biguri

Agirian idatzirik moduan, "errusiar intelektualen jarrera gaitzesten dugu" hori onestezin zaio, Errusiako intelektual denak zaku berean sartzea omen delako. Edorta Jimenez

Eta gero Zednicek kontseilaria sartu zen, **agirien** karpeta eskuan, eta argazki sorta bat barreiatu zuen telegrafoaren mahaian, Zdenka Svatá telegrafistaren ipurdi inguruko zigilu guztien argazkiak. Fernando Rey

Jende horrek izandako eraginaren lekuko, asko dira XIII-XIV. mendeetan okzitaniera hutsean idatzitako **agiriak** Nafarroan (ikus Ciervide 1988). Koldo Zuazo

Agiria bukatu zuen emakumeak eta armen begipean zuten betiere tipoek Yvan. Joxan Elosegi

Hartu izanaren **agiriak** sinatu behar nituen nik, eta haiek zigilu turkesa-kolorea jartzen zieten gainean, beren izenekin eta sei petaloko lore batekin. Fernando Rey

Une horretatik aurrera, eta arratsalde amaierara arte, Lajosi etxea saltzeko baimena ematen niola adierazten zuen **agiria** idazten hasi zen arte, ez zion gehiago hitzik esan. Ander Irizar

Hiru arrasto egin zituen **agirian**, eta baten bat izan zen lekuko. Koro Navarro

Astean bi aldiz joaiten zen komandantur-era ardien ikusteko baimena emaiten zion **agiriaren** bila. Eneko Bidegain

-Hara, seme, **agiri** bat sinatu genuen biok, eta gero erditik zatitu genuen: zati bat niri eman zidan Gabaelek eta bestea berari eman nion nik, diruarekin batera gorde zezan. Jose Antonio Mujika

Gorteko alkateak **agiria** erakutsi zuen. Aingeru Epaltza

Sina ezazu **agiria**, nahi baduzu joan orain, nahi baduzu bihar goizeko hamarretan. Pablo Sastre

Bere **agiriak** memoria mayaren zati dira. Txema Ramirez de la Piscina

Orduko **agiriek** garbi erakusten digute izurriak izugarri zirela. Gotzon Garate

Faltsutu itzazu **agiriak**. Matías Múgica

Ez dakit harrapatuko ote ninduten ala ez, ez bainuen **agiririk**, nortasunik, ezer ez. Jon Muñoz

Historian zehar, kaleak, **agiriak**, liburuak eta sukaldeak bete dira politikoen bulegoetan sortutako hitzez. Iñigo Aranbarri

Maitagogoaren maitabehar hau, maitatzearen aldeko joko hau **agirian** azaltzen da bere bizitza osoan. Jenaro Garate

Dirua, eta oraindik etxean dudan **agiri** bat ere. Pello Salaburu

Ez diat dirurik, ez **agiririk**, ez bizilekurik. Fernando Rey

Nortasuna, ordea, ez da **agirian** ageri, ez NAN delakoan ez ENA delakoan ere. Joxerra Garzia

Sartu etxean, egin ezazu behar bezalako **agiri** bat eta gaur gauean bertan lurperatuko dugu. Alberto Ladron Arana

Goi bileraren emaitzak, funtsean, honako bi **agiriotan** gauzatu ziren: Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

-Ba al dakizu zer den hau? Errepublika izatetik erreinu izatera pasatzen garela bermatzen duen **agiria**. Felipe Juaristi

-Agiri hau - erantzun zidan -. Ander Irizar

Azken horretan, hitzaurrean ("Heuskalduney"), euskara batuaren aldeko lehendabiziko **agiria** heldu da. Askoren artean

2 (izenondoekin)

Eta sumario-sekretupeko **agiri** judizial batzuen kopiak, eta baita Gobernuko Ordezkaritzaren bulegotik zuzenean ateratako txosten "pribatu" pare bat ere: ikusiko duk norekin bildu zen Villar hori... Iban Zaldua

Niri, ordea, **agiri** ofiziala eman didate, armagintza-industriako komandantearen zigilu eta guzti; "Csepeleko muga zeharkatu" dezakedala dio. Urtzi Urrutikoetxea

Laurehun eta hogeita hamazazpi orrietan ez du gertaera berririk kausitu, edo intrepretazio polemikorik, edo **agiri** ordura arte ezezagunik, ez eta berrirakurketarik ere. Jon Alonso

Kosta egiten zitzaidan neure buruari sinistaraztea nire bizitza bizitza galdua zela, gezur bat; nire izena, mailegatua, lapurtua; nire pasaportea, espia nazkagarri baten **agiri** nazkagarria. Matías Múgica

Aizarnazabalgo Udal Batzak aho batez erabakitakoa bidegabea dela esan dute eta Usurbilgo herritarrek ez dutela eskubiderik **agiri** ofizialak euskaraz jasotzeko, ez behintzat, gaztelaniaz ez dakitela nabarmenki ikusten ez bada. Hasier Etxeberria

Hire fitxa egiteko nahiko ditiztek, edo, auskalo, orain espioi lanetan arituko haizenez, nortasun **agiri** faltsuak egiteko. Alberto Ladron Arana

Legeak bere gogoa erakusten du gizakien egoera zibila **agiri** publikoetan idazteko; norbanakoekin ez ezik, familiekin ere arduratzen da nagusiki. Andres Urrutia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sinesten ditugunak, beste lekukoek garamatzate sinestera, guk ikusten ez eta inoiz ikusi izana ere gogoratzen ez ditugun gauzen zantzuak ematen dizkigutenean hitzez, izkribuz edo beste edozein **agiri** motaz; agiriak erreparatzean ikusi ez duguna sinesten dugu. Imanol Unzurrunzaga

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

[...] Lauaxeta kanposantuan hil zuten, gure aitona ez, egun batean beren askapen-**agiria** sinarazi zieten berari eta beste nazionalista eta errepublikar batzuei, [...] Mikel Hernandez Abaitua

Handik bost egunetara neskamez jantzita, eta Robespierreren beraren pasa-**agiri** benetako batez horniturik, Bertrandek jokoan irabazia bera, abiatu ziren bi zaldi beltzez, bi zaldi gazte eta putinkariez bultzaturiko karroza batean Luisa eta Violette andereak. Felipe Juaristi

Aurrena, sarreran baimen **agiria** hartu beharra zegoen, handik hiztegira joaten ziren ondoren, bisita lekura. Jokin Urain

- Beraz, ondo baderitzozu, oraintxe bertan has gaitezke eroste-**agiria** prestatzen - esan zuen Txitxikovek. Jose Morales

Geroago, gure amak jostun **agiria** jaso zuen eta, agindutakoaz bestera, ahantzi egin zuen gizon mozorrotua, bere ongilea. Pello Lizarralde

Ordurako libretarentzat sarrera-**agiria** prestatua nuen eta dirukopurua kopiatua haren aurrean, eta pasatu nion. Xabier Olarra

Egoitzaren erdian, itun-**agiria** gordetzen zuen urrezko kutxa ipini zuten, oihal handi batez estalia. Jose Antonio Mujika

Hango artxiboak gordetzen du Claudio Guillon deitzen zen zaldun gizajo baten ahozko auzia eta exekuzio **agiria**: lepoa moztu zioten 1629ko uztailaren 28an. Juan Martin Elexpuru

Ikaragarri baitakigu denon artean, baina ez dena, eta beraz (eta tranpazko beraz hauxe da Jainkoaren jaiotzako **agiria**), bada, egon behar du, norbait badakiena. Iñaki Segurola

Ez, adiskidetasun **agiria** da. Gotzon Garate

Udaleko funtzionarioak ehorzketa-**agiria** erakutsi zidan. Aingeru Epaltza

Tira, bota diezaiogun begiradatxo bat sal-menta-**agiriari**. Xabier Paya

-Tsarrak ez dio uko egingo haren izenean ematen dudan indultu **agiria** onartzeari! Karlos Zabala

Mediku-**agiria** izanez gero, eta erraz eskuratzen da hori, ariketa-orduak nahi adina gehi daitezke. Antton Olano

- Zer?, arima hilen eroste-**agiria**? Jose Morales

"Fedearentzako doktrina arriskutsuak zabaltzeagatik herriari egindako alemanezko sermoietan", Prozesuko Akusazio **Agiriak** zioenez. Joan Mari Lekuona

Harekin mintzatzen nintzen ardura, ez luzaz eta neure block-era joan nintzenean hamar egunen pausu-**agiriarekin**, segur nintzen gaina hartuko zuela. Marzel Etxehandi

Hala egin zuen Aaronek, Jaunak Moisesi agindu ziona betez, eta itun-**agiriaren** aurrean gorde zuen. Jose Antonio Mujika

Libreta hartu eta sarrera-**agiri** bat egin nuen, baina Church handik metro batera zegoen, batuketa-makinetako batean zerrenda bat sartzen. Xabier Olarra

Helburua, bada, txekiar zientzialaririk handienetariko bat ohoratzea da, eta, bide batez, genetikaren sortze-**agiritzat** jotzen dena ospatzea. Juan Garzia

-Gorri-gorriz markatuko balu hobe noski, eskoletako garaile-**agirietan** bezala -Santxok erantzun- garbi ikus dezaten ikusten dutenek. Patxi Ezkiaga

Erabateko ezintasun-**agiria** eman zioten. Iñigo Aranbarri

Zeren nobletasun **agiria** bereganatu ondoren egin baitzezakeen amets, orduan baizik ez, nobleen bizimoduarekin, zergak eta tributuak ordaintzeari utziz eta lana ere alde baterat utziz. Joan Mari Irigoien

Gutunak eramanarazi nizkion, eta hartu-**agiri** bat egin zion eramaileari. Josu Zabaleta

Han zeukatean, den-dena, nire aurrekarien kondena-**agiritegian**. Mirentxu Larrañaga

Bazekien sarrerakoak salto egin eta mamia non egoten den, autopsia **agirien** hasieretan ohikoa baizik ez dela agertzen beti Hasier Etxeberria

-Hadassi dibortzio **agiri** bat bidaltzea komeni zaizu, nik uste. Koro Navarro

5 ***abonu agiri*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Ondoren, Gizarte Segurantzako Erregistroan **abonu agiria** aurkeztu dugu. ETC-prentsa

6 ***agiri izan***

Aita gizajoari zoragarria iruditu zitzaion, **agiri zelako** hura pergaminozko paperean eta tinta txinatarraz dotore idatzita zegoelako, eta hitz ederrez taxutua batez ere. Ramon Saizarbitoria

7 ***alarguntasun-agiri*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Dena den, aurrerantzean ere, bizitza -, ezkongabetasun -, edo **alarguntasun-agiriak** egin ahal izango dira; horretarako, prozedura zehatza ezarri da, gutxieneko bermeak dituena eta nahi den helburua lortzeko egokia dena. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***aurretiazko borondateen agiri***

Bizi testamentua edo **Aurretiazko Borondateen Agiria** pertsonak bere bizitzaren azkenetan berak adierazi ezin izatekotan jaso nahi dituen tratamendu medikuak eta zainketa moduak biltzen dituen idazkia da. Berria - Harian

Eusko Jaurlaritzak **Aurretiazko Borondateen Agiria** atera du berriki. Berria - Euskal Herria

9 ***baja agiri*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Horrez gain, **baja agiriak**, mediku-egiaztagiriak, mamografiarako zitazioak eta gaixotasunen kontrolerako jarraibide idatziak ere gaztelaniaz betetzen dituzte Nafarroa osoko medikuek. ETC-prentsa

Orobat, behin baja adierazita, **baja-agiriak** ere bost urtean gorde beharko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ordenantzaren mahaitik bolaluma bat hartu eta gutun-azalean "Mikel Izu, **baja agiria**, langileen sailerako" idatzita, Mertxe edo Montse haren karpetaren gainean utzi zuen. ETC-literatura, saiakera

10 ***baldintza-agiri*** *(corpusean ez dago; ETCn **116** agerraldi)*

Txinako gobernuaren **baldintza agiri** bat da. ETC-literatura, saiakera

Hurrengo asteak perfektuak izan ziren, hastapenetan, sarri, izaten diren bezala; baina ohiko tranpetan erori gabe, proiektu klasikoetan, **baldintza-agiriaren** ameskerietan, usadiozkoak eratzen ari den bikote batean. ETC-literatura, saiakera

Genero pornografiko orok ditu bere **baldintza-agiria**, bere historia eta bere estetika. ETC-literatura, saiakera

Bigarrenik, udal kontratazio publikoa egiteko **baldintza-agirietan** ingurumen parametroak sartzeko konpromisoa hartzen du. ETC-prentsa

Bestalde, markaren oinarrian izanen den **baldintza agiria** adostuko dute udazkenerako. ETC-prentsa

Lizitaziorako **baldintza agiriak** prest ditu diputazioak. ETC-prentsa

Baldintza agiriak aztertu ondoren, ez zuen irregularitasun zantzurik ikusi, eta ikerketa artxibatu zuten 2017aren amaieran. ETC-prentsa

Arrietaren aburuz, "administrazioei eskatu behar zaie euren **baldintza agirietan** langileentzako baldintza hobeak ziurtatzea". ETC-prentsa

Ez-betetzea larria denean, aurreko ondorioez gainera, emakida suntsiaraztea ere etorriko da, **baldintza-agirian** ezarritako egoerak gertatuz gero. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikurrek beren araudia edo **baldintza-agiria** daukate, bai eta kontrol-sistema ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretarako, baldintza hori berariaz jasoko da publizitateko kanpainak esleitzeko **baldintza-agirietan** edo eskaintzetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erosketa-prozesu osoa kudeatzen dute: **baldintza-agirien** publikazioa, erosketen kudeaketa, erosketen harrera eta banaketa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Obra egoera horren bitartez, obra, **baldintza-agirian** zehazten den moduan egiten ari dela erakutsi behar du. ETC-entziklopedia

11 ***bataio agiri***

Ez dute **bataio agiritik** borratuko, baizik eta apostasia egin dutenen zerrendan erantsiko dute. Berria - Harian

Izenak berak ere deigarriak dira, "Gurutz" ez baitzen euskaltzaletu eta gero itzulitako izena, ponteko eta **bataio-agirietakoa** baizik, eta halakoxeak ziren haren anai-arreba

ugarien izenak ere: Andoni, Edurne, Jokin, aipatua dugun Kelmen... Xabier Mendiguren Elizegi

Horrez gainera, orobat nire esku ditut, eta poztuko zaitu entzuteak, Miss Cardewren jaiotza-agiria, **bataio-agiria**, kukurruku eztularen agiria, erroldarena, txertoarena, sendotzarena eta elgorriarena; bi elgorri motena, bai Alemaniakoa bai Ingalaterrakoa. Antton Olano

Esaldi hori bera errepikatzen da ezkontza agirian, seme-alaben **bataio agirietan** eta zendu zenekoan. Berria - Kultura

12 *batzar-agiri*

Historia beti eta nonahi, gizarte guztietan, iraupenaren forma espontaneoak, nola antolatuak, erakusten dituen dokumentazio materialak (liburuak, testuak, kontaerak, erregistroak, **batzar-agiriak**, eraikuntzak, erakundeak, araudiak, teknikak, gaiak, ohiturak eta abar) lantzea eta baliatzea da. Xabier Arregi

13 *bizi-agiri* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Eta agiriok izapide askotan erabiltzen dira: seme-alabak eskolatzeko, etxebizitza bat erosteko, **bizi agiria** aurkezteko... ETC-prentsa

Dena den, **bizi-agiriari**, ezkongabetasunari edo alarguntasunari buruzko espedienteak araudi bereziekin bat etorriko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erregistro zibilean lehen auzialdiko epailea da (jaiotzak, heriotza, **bizi-agiriak**, ezkontza eta bestelakoen inskripzioak erregistratzen dira) eta Lehen auzialdiko epaitegirik ez duten herrialdeetan, Bake Epaitegiak daude. ETC-entziklopedia

14 *emate-agiri* *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Alde horretatik, gogoan dugu Patronatuak berak, krisi uneetan, beti aldarrikatu duela asmo sendoa duela fundatzailearen borondatearen araberako dinamika sortzeko; borondate hori argi eta garbi azalduta dago **emate-agirian**. ETC-prentsa

Navarreteko eta Bernedoko larreen **emate agiriak** (1544) edota Lope Ortiz de Salazarren aldeko kaparetasun betearazlea (1536) ikusgai dira gaurtik Arabako artxibo historikoan. ETC-prentsa

Alde batetik, beraien erosketa guztien historiko bat eta bakoitzetik **emate-agiri**, faktura eta altzairuaren kalitate agiria lortu dezakete eta baita inprimatu ere. ETC-prentsa

Igorlearen datuak **emate-agirian** daude. ETC-literatura, saiakera

Filipe II.ak sinatutako lur sailaren **emate agirian** zehaztu zen arabera bertan inongo eraikinek ez altxatzeko agindua eman zen. ETC-entziklopedia

Era masiboan egitura edo erdi-egituradun dokumentuen (fakturak, soldata-orriak, **emate-agiriak**, polizak, banku-justifikazioak, etab.) kantitate handiak digitalizatzeko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

15 *eskolaratze agiri* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Malgutasun" faltsua" izan dela salatu du Jauregik:" Zazpi agiri horietako lau (osasun txartela, seme-alaben **eskolaratze agiria**, oinarrizko gizarte laguntzena...) lortzeko erroldatuta egon behar da jada. ETC-prentsa

16 *euskararen gaitasun agiri*

Alegia, nor ez da konturatu bulego batera hurbildu eta hangoak erdaraz ari direla elkarren artean, eta zuri ere hasieran erdaraz egingo dizutela, nahiz eta eskatu bezain laster fierki **euskararen gaitasun agiria** aterako dizuten, batez ere oposizio batzuetan aurkezteko behar baldin badute? Pello Salaburu

Urte guziez bezala, Euskaltzaindiak antolatzen du **Euskararen Gaitasun Agiria** (E.G.A.). Herria

17 *ezkon agiri* *(orobat **ezkontagiri**)* ezkontzako agiria.

Idatzi zuen **ezkon-agiria**, Moisesen legearen arabera Sara Tobiasi emaztetzat ematen ziola adieraziz. Elizen arteko biblia

Gero, amari deitu, papera ekarrarazi eta **ezkontagiria** idatzi zuen, 'emaztetzat ematen ziola' adieraziz, 'Moisesen Legearen arabera'. Jose Antonio Mujika

18 *ezkontza agiri*

Sexu bereko bikotekideak ezkontzea Konstituzioaren kontrakoa den ala ez erabaki bitartean, bikote homosexualei **ezkontza agiririk** ez emateko agindu dio Kaliforniako Gorenak San Frantziskoko Udalari. Berria - Gaiak

- Laztana, neska honek dio Mrs. Jack Cunningham dela eta hori egiaztatzen duen **ezkontza-agiri** bat dakarrela. Lopez de Arana

Errekorte liburu handi bat, azalean nazionalizatze agiria itsatsita zeukana, gero **ezkontza agiria**, Los Angeleseko Konterri osorako balio zuen negozio agiria, greziar armadan ibili zeneko argazki bat. Pablo Sastre

Esaldi hori bera errepikatzen da **ezkontza agirian**, seme-alaben bataio agirietan eta zendu zenekoan. Berria - Kultura

Ezkontza agiri frango baziren ere: ezkongaien izenak, sorterriak eta sortegunak adieraziak ziren. Ramuntxo Etxeberri

19 *gaixo agiri*

Nuevo Pilin itsasontziko patroiaren semea ere ontzian lanean behar zuen, baina **gaixo agiria** zuen. Izan ere, sail guztietan badira bi edo hiru mediku **gaixo agiriak** ematen adituak direnak. Berria - Ekonomia

Foruzainen %42k **gaixo agiria** hartu dute protesta egiteko. Berria - Ekonomia

Medikuaren **gaixo agiria** eskatu zaie foruzainei. Berria - Ekonomia

Hiru egunetik gorako **gaixo agiria**. Berria - Ekonomia

Lan segurtasuna: Ez dute **gaixo agirien** %75 ordaindu nahi, «lanuzteak bultzatu eta kostuak %2tik gora igoko liratekeelako». Berria - Ekonomia

2002an 1.788.210 lanegun galdu ziren **gaixo agirien** ondorioz : 21,2 baja egun langileko. Berria - Ekonomia

Zenbaitzuk soldataren %100 jasotzen dute **gaixo agiria** eskuratzen duten lehen egunetik. Berria - Ekonomia

20 *hartze-agiri* *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

Delako papera Luker jaunak egun hartan bertan bere bankarien gomendio utzitako baliozko gauza baten **hartze-agiria** zen. ETC-literatura, saiakera

Gogoratzen zuen, baina hori nahiko lauso, notarioari bisita egin eta hamarren bat egunen buruan, hark **hartze-agiri** bat egin ziola. ETC-literatura, saiakera

Haren letra txarrak trazu baldarki kateatuak josten zituen **hartze-agiri** edo pagakizun-agirietako testuetan, edo zaldia, eskopeta edo automobila konfiskatuko zioten norbaiti emateko frogagiri baino ez zirenetan. ETC-literatura, saiakera

Ohe-jantziak nik eramaten ditut garbitegira, eta **hartze-agiria** jasotzen dut. ETC-literatura, saiakera

Justifikatu gabeko 101.000 euro aurkitu ditugu, baimenik edo **hartze-agiririk** gabe eta, oro har, euskarri egokirik gabe gastatutakoak. ETC-prentsa

21 *heriotza-agiri*

Heriotza agiria herrian sinatua zen, 1937ko maiatzaren 7an. Edorta Jimenez

Hirugarrena, **heriotza-agiria**, Udaleko funtzionarioaren eskuetan. Aingeru Epaltza

Schenker doktoreak, italiarrak ederki ordainduta, **heriotza-agiri** faltsu bat eginen zuen, neskaren heriotzaren benetako kausa ezkutatuz. Alberto Ladron Arana

Lehenagoko batean ekarri zidan **heriotza**-agiria atera nion. Edorta Jimenez

Sendagileekin hitz egin ondoren, **heriotza-agirian** Gipuzkoako datuak jarri zituzten, bertan hil balitz bezala. Xabier Etxabe

Heriotza agirien liburuko beste orrialde haren fotokopia luzatu zidan. Edorta Jimenez

22 *hil-agiri*

Medikuak **hil** agiria eman zuen. Josu Zabaleta

Direnean ere hemengo helbidea izaten ditek **hil**-agiriek. Josu Landa

«Artxiboa besterik ez balitz», azaldu du irakasleak, «ondare honen **hil agiria** izango litzateke, hori besterik ez. Berria - Harian

23 *jaiotza-agiri*

Guk ez genekien zure **jaiotza-agirian** J madarikatu hori agertzen zenik. Anjel Lertxundi

Urteetan saiatu nintzen anaiaren eta bion **jaiotza agiriak** lortzen, paperak zuzentzeko. Jokin Urain

Bere jaiotza data eta lekua eztabaidatuak izan dira, baina Kairoko Unibertsitatean (Egipto) aurkitutako **jaiotza agiriak** argi dio Kairon bertan, 1929ko abuztuaren 24an, jaio zela. Berria - Mundua

Orduan ulertu nuen, leihoaren ondoan nengoela, Andoniren oihuak mezu bat izan zitezkeela **jaiotza agirien** bila epaitegira hurbiltzen ziren herritar bakezaleek ikas zezaten; tortura entzundako guztiak ez dira ikaratuen multzoan ezkutatzen. Koldo Izagirre

XX. mendearekin batera jaio zen, 1900eko ekainaren 29an, Lyonen, Wright anaiek beren lehen hegaldiarekin 1903ko abenduaren 18an hegazkintzaren **jaiotza agiria** sinatu baino hiru urte lehenago, beraz. Josu Zabaleta

Hala ere, apriorizko adigai hutsen dedukzioa ez da inolaz ere horrela egiten, ez baitago bide horretan, zeren adigai hauek, esperientziatik guztiz beregain izan behar duen bere etorkizuneko erabilerari begira esperientzietatiko jatorria ez den beste **jaiotza-agiri** erabat ezberdina erakutsi behar baitute. Ibon Uribarri

Pentsa ezazu zeinen azkar gertatu zen guztia: zure **jaiotza-agiria** egin nuenerako Garbiñe ez zegoen jada nirekin, eta agiri horretan neure izena ageri da zure amarenaren ordez. Aitor Arana

Institutuan izena emateko, **jaiotza agiria** edo familia liburua eskatu zidaten. Berria - Euskal Herria

Chateubriand-ek kontatzen du Hil ondoko memoriak liburuan: Napoleon Bonapartek boterea iritsi zuenean, **jaiotza agiria** aldarazteko agindu zuen, 1768rik 69ra. Iñigo Aranbarri

Orain, gauzak konpondu nahi nituzke, lehenbizi Azad haren heriotza-agiria atera, eta bizirik dagoen honen **jaiotza-agiria** egin. Juan Kruz Igerabide

Horrez gainera, orobat nire esku ditut, eta poztuko zaitu entzuteak, Miss Cardewren **jaiotza-agiria**, bataio-agiria, kukurruku eztularen agiria, erroldarena, txertoarena, sendotzarena eta elgorriarena; bi elgorri motena, bai Alemaniakoa bai Ingalaterrakoa. Antton Olano

24 *jasotze-agiri* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Honen **jasotze-agiria** emango dizugu, Leonides jauna. ETC-literatura, saiakera

Dolar pare bat aurreratu nizkion zerbitzu horren aldera, eta diru horren **jasotze-agiri** bat eman zidan. ETC-literatura, saiakera

Jasotze-agirian, entrega zer egunetan egin den adierazi beharko da, eta posta-funtzionarioak eta jasotzaileak sinatu beharko dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Interesdunak espresuki uko egiten ez badio behintzat, eragiketaren **jasotze-agiria**, kopia edo egiaztagiria ematea, edo, hala badagokio, behar bezala azalduriko aurrekontua. ETC-zientzia, zuzenbidea

SMTPren ezaugarrien artean aipagarrienak posta-zerrendak, **jasotze-agiriak** eta birbidaltzea dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazioetan aurkezturiko eskabide eta dokumentuen **jasotze-agiria** har daiteke, horiek zein egunetan aurkeztu diren egiaztatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko kontratuak egitean, **jasotze-agiria**, kopia edo egiaztagiria emango da, eragiketaren funtsezko baldintzak biltzen dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

25 *lan-bizitzaren agiri* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Duela gutxi, **lan-bizitzaren agiria** eskatu nuen, eta, lanean zazpi urte egin ditudan arren, bost besterik ez ditut kotizatuta. ETC-prentsa

26 *nortasun agiri* *(**213** agerraldi, **46** liburu eta **99** artikulutan; orobat **ageri** g.er.)*

Nere karnetean, **nortasun agiri** edo dena delakoan, nor naizen adierazten da, ustez: izen bat naiz, numero bat naiz, aurpegi bat naiz."José Ramón" naizela jartzen du nire **nortasun agirian**. Iñaki Segurola

Nortasun agiri frantsesean Jerôme deitzen zen. Itxaro Borda

Nortasun-agiriaren arabera, hogeita hiru urte baino ez zituen. Jose Morales

Beste gela batera eraman gintuzten, argazkiak egitera, **nortasun-agirirako**. Juan Kruz Igerabide

Hiru paper behar dira: **nortasun ageria**, lurraldetik ateratzeko baimena, eta ere E 111 papera. Herria

Hamabost egunen buruan **nortasun agiri** faltsuak eskuratu zituzten. Itxaro Borda

Hamabost egunen buruan **nortasun agiri** faltsuak eskuratu zituzten. Itxaro Borda

Atxiloketaren unean bi **nortasun agiri** zituen Gomezek, bietako bat faltsua. Berria - Euskal Herria

Esan zidan nire **nortasun agiriaren** zenbakia bikoiztuta zegoela, besteren batek zenbaki bera zuela, alegia. Jokin Urain

Nortasun agiria erakutsi behar izan dugu etxera sartzeko. Berria - Euskal Herria

Ertzaintzak beste 20 langileren **nortasun agiriak** bildu zituen. Berria - Ekonomia

Duela ia 30 urte Espainiako **Nortasun Agiria** iraungia izanik. Berria - Euskal Herria

Duela 35 urte berritu zuen azkenekoz Espainiako **Nortasun Agiria**. Berria - Euskal Herria

Inolako **nortasun agiririk** gabe, errefuxiatu edo herritar **nortasun agiririk** gabe, estatu interesen arabera haizeak darabilen orbela baino gehiago ez da deportatua. Jokin Urain

Horratx gure **nortasun agiri** nazionala. Patziku Perurena

SS **nortasun agiriaren** zenbakia: 35.326. Alberto Ladron Arana

· Zein da ikastola berri horren **nortasun ageria**? Herria

27 *nortasun agiri nazional*

Bestek interesante egin zain dagoen mutikoxkor mainoso bat: horratx gure **nortasun agiri nazionala**. Patziku Perurena

Egia eta Elortzaren ezaugarri pertsonalak, **Nortasun Agiri Nazionalaren** zenbakia eta abar. Ramon Saizarbitoria

28 *notario-agiri* *(corpusean ez dago; ETCn **34** agerraldi)*

Hori guztia, jakina, bere legezko kontratu eta **notario agiriarekin**. ETC-literatura, saiakera

Apeta horretatik ez da besterik geratzen grafia rococoa duten paper horiek baizik, urrezko meategi baten **notario agiria** ematen dute. ETC-literatura, saiakera

Arabako lurralde historikoan sortutako dokumentazio historikoa biltzea du helburu, ehun urte baino gehiago duten erregistro eta **notario agiriak**, funts pribatu eta beste dokumentazio bilduma batzuk, besteak beste. ETC-literatura, saiakera

Gainera, **notario-agiri** batek eta Nafarroako Gobernuan egindako erregitro-oharpen egokiak bermatuta dago. ETC-prentsa

Gitarra, eta pentagrama gozoetan bildutako **notario agiriak** zeramatzan. ETC-prentsa

Txikitu dugun guztiaren **notario agiria**. ETC-prentsa

Inork lehenago aztertu ez dituen dokumentuak aztertu ditu Azpiazuk: **notario agiriak**, auziak, testamentuak... ETC-prentsa

Ehun urte baino gehiagoko **notario agiriak** eta nobletasunarekin, kaparetasunarekin eta odol garbitasunarekin lotutakoak kontsulta daitezke. ETC-prentsa

Notario agirietan, auzi agirietan eta udal artxibategian aurkitu ditu garai bateko pilotari lotutako istorioak. ETC-prentsa

Gurasoek, testamentuan nahiz **notario-agiri** publikoan, tutorea izenda dezakete, eta tutoretzaren gaineko fiskalizazio-organoak ezar ditzakete. ETC-zientzia, zuzenbidea

Artxibo honetan gordetzen da "Ene laztan gozo ederra... " izeneko olerkiaren agiria. 2020an aurkitu zuten ikerlariek, gaztelaniazko **notario agiri** baten ertzetan idatzia. ETC-entziklopedia

29 *noten agiri* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Askotarikoak dira susmoak: presoak baldintzak bete gabe matrikulatu direla, **noten agiriak** aldatu direla, iheslariek azterketak egin dituztela, matrikulatzeko nortasun agiri faltsuak erabili direla, agiri guztiak irakasle berak firmatu dituela eta deialdiak ez direla ondoz ondokoak izan, besteak beste. ETC-prentsa

Bigarren hipotesian, noizbehinkako azterketez gain, lizeoko azken bi urteetako **noten agiriari** ere garrantzia ematea espero dute, nahiz eta proportzioa ez duten oraindik argitu. ETC-prentsa

30 *Osasun Nortasun Agiri* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Txartel berria ONA moduan izendatu dute: hau da, **Osasun Nortasun Agiria**. ETC-prentsa

Osasun Nortasun Agiria, ONA gisa ezaguna, Osakidetzaren txartel elektronikoa da. ETC-entziklopedia

31 *zor agiri*

Zor agiriak jaulkiko ditu BBK-k, 900 milioi euroko balioarekin. Berria - Ekonomia

Horretarako, akziodunek ontzat jo beharko dute enpresaren estatutu aldaketa, eta baimena eman beharko diote bonoak eta **zor-agiriak** jaulkitzeko. Berria - Ekonomia

Baina berarena zen errua, ez beste inorena, zeren eta askotan nahastu egiten baitzituen bere kartak eta besteek kalkulatu behar izaten baitzioten **zor-agiriak**. Irene Aldasoro

Bultzatzen al zaitut zeure **zor agiriak** ez ordaintzera, bezeroei iruzur egitera, ehun soseko txanponak edonola eskuratu eta agudo-agudo pilatzera?... Karlos Zabala

Mmmm! lur-erosle handiren bat zuan apika bere garaian, bere hipotekekin, bere **zor-agiriekin**, bere itunekin, bere berme bikoitzekin, bere aseguruekin. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

agiri arruntak (5); **agiri asko** (7); **agiri aurkitu** (4); **agiri bakarra** (5); **agiri bat** (150); **agiri bat atera** (5); **agiri bat aurkeztu** (4); **agiri bat eman** (6); **agiri bat irakurri** (6); **agiri bat kaleratu** (14); **agiri bat plazaratu** (7); **agiri bat sinatu** (6); **agiri batean** (85); **agiri batean jakinarazi** (4); **agiri batek** (17); **agiri baten** (89); **agiri baten berri** (4); **agiri baten bidez** (54); **agiri baten bitartez** (20); **agiri bateratu** (15); **agiri bateratu bat** (8); **agiri bateratu baten** (4); **agiri bateratua** (14); **agiri bateratuan** (6); **agiri batzuk** (8); **agiri berezi** (4); **agiri berria** (5); **agiri edo** (7); **agiri eta** (31); **agiri faltsu** (15); **agiri faltsu bat** (7); **agiri faltsua** (4); **agiri faltsuak** (27); **agiri faltsuekin** (7); **agiri guztiak** (25); **agiri hau** (15); **agiri hauek** (5); **agiri honek** (6); **agiri honen** (9); **agiri hori** (45); **agiri horiek** (26); **agiri horrek** (9); **agiri horrekin** (4); **agiri horren** (13); **agiri horretan** (39); **agiri hura** (4); **agiri labur** (5); **agiri ofizial** (10); **agiri ofiziala** (6); **agiri ofizialak** (6); **agiri ofizialen** (4); **agiri sekretu** (4); **atzemandako agiri** (6); **atzo agiri** (7); **atzo plazaratutako agiri** (4); **baina agiri** (4); **beste agiri** (13); **bidalitako agiri** (7); **buruzko agiri** (5); **dituen agiri** (4); **du agiri** (16); **du agiri hori** (4); **duen agiri** (10); **dugu agiri** (4); **duten agiri** (4); **edo agiri** (4); **ere agiri** (5); **eroste agiri** (5); **eta agiri** (48); **eta agiri bat** (8); **eta agiri faltsuak** (6); **etaren agiri** (9); **etaren agiri bat** (4); **gaixo agiri** (6); **gobernuak agiri** (4); **hainbat agiri** (20); **igorritako agiri** (8); **irakurritako agiri** (4); **kaleratutako agiri** (9); **kaleratutako agiri batean** (9); **milaka agiri** (6); **nortasun agiri** (44); **nortasun agiri bat** (4); **nortasun agiri faltsu** (6); **nortasun agiri faltsuak** (11); **ordezkariek agiri** (4); **plazaratutako agiri** (7); **plazaratutako agiri batean** (7); **prentsa agiri** (19); **prentsa agiri baten** (11); **sinatutako agiri** (4); **zabaldutako agiri** (14); **zabaldutako agiri batean** (7); **zabaldutako agiri baten** (6); **zen agiri** (9); **zenbait agiri** (4); **zituen agiri** (4); **zuen agiri** (23); **zuen agiri batean** (4); **zuen agiri baten** (4); **zuten agiri** (7); **zuten atzo agiri** (4)

abiaburu agiria (5); **agiria atera** (9); **agiria aurkeztu** (13); **agiria aurkeztu zuen** (7); **agiria da** (9); **agiria e** (5); **agiria egin** (9); **agiria egiteko** (4); **agiria eman** (29); **agiria eman zioten** (6); **agiria emango** (6); **agiria emateko** (4); **agiria ematen** (5); **agiria erakutsi** (9); **agiria ere** (4); **agiria eskatu** (12); **agiria eskuratzeko** (5); **agiria eta** (21); **agiria euskal** (4); **agiria ez** (15); **agiria ezartzeko** (5); **agiria hartu** (10); **agiria hitzartu** (5); **agiria idatzi** (9); **agiria irakurri** (19); **agiria irakurri zuen** (7); **agiria irakurri zuten** (4); **agiria izan** (8); **agiria izango** (5); **agiria izena** (19); **agiria izenpetu** (6); **agiria jaso** (15); **agiria kaleratu** (25); **agiria kaleratu du** (6); **agiria kaleratu zuen** (10); **agiria lortzeko** (7); **agiria plazaratu** (11); **agiria plazaratu zuen** (5); **agiria plazaratu zuten** (5); **agiria sinatu** (34); **agiria sinatu dute** (6); **agiria sinatu zuten** (5); **agiria sinatzeko** (10); **agiria sinatzeko eskatu** (4); **aldeko agiria** (10); **askatasun agiria** (4); **aurkako agiria** (7); **azken agiria** (9); **baimen agiria** (5); **baten agiria** (4); **bere agiria** (4); **bere nortasun agiria** (6); **borondateen agiria** (5); **buruzko agiria** (4); **dibortzio agiria** (10); **dibortzio agiria idatzi** (4); **dituen agiria** (5); **duen agiria** (23); **dute agiria** (7); **duten agiria** (5); **egonaldi agiria** (13); **ere agiria** (4); **eroste agiria** (15); **errolda agiria** (8); **eskubideen agiria** (14); **espainiako nortasun agiria** (6); **eta agiria** (16); **eta nortasun agiria** (4); **eta ren agiria** (4); **etaren agiria** (14); **etaren azken agiria** (4); **euskararen gaitasun agiria** (6); **gaitasun agiria** (8); **gaitasun agiria e** (5); **gaixo agiria** (28); **gazteriaren eskubideen agiria** (4); **heriotza agiria** (6); **idatzitako agiria** (6); **irakurri zuen agiria** (5); **itun agiria** (6); **itunaren agiria** (5); **izeneko agiria** (6); **jaiotza agiria** (7); **jaiotze agiria** (5); **jatorrizko agiria** (4); **kaleratutako agiria** (4); **medikuaren agiria** (9); **nortasun agiria** (98); **nortasun agiria eman** (5); **nortasun agiria ezartzeko** (5); **nortasun agiria izena** (19); **plazaratutako agiria** (4); **ren agiria** (4); **senda agiria** (42); **senda agiria eman** (12); **senda agiria jaso** (7); **z nortasun agiria** (16); **zen agiria** (6); **zuen agiria** (22); **zuten agiria** (6)

agiriak atera (5); **agiriak aurkezteko** (5); **agiriak aztertu** (4); **agiriak behar** (9); **agiriak dio** (9); **agiriak dioenez** (10); **agiriak eman** (6); **agiriak emateko** (5); **agiriak erakutsi** (4); **agiriak eskatu** (10); **agiriak eta** (15); **agiriak ez** (32); **agiriak ez du** (9); **agiriak faltsutzea** (7); **agiriak hitzez** (4); **agiriak hitzez hitz** (4); **agiriak itzultzeko** (5); **agiriak lortu** (4); **agiriak lortzeko** (6); **agiriak zioenez** (6); **agirian esaten** (6); **agirian ez** (4); **agirian jasotzen** (5); **agirian jasotzen denez** (4); **agiriaren arabera** (28); **agiriaren aurrean** (4); **agiriaren berri** (8); **agiriaren bidez** (4); **agiriaren bila** (5); **agiriaren eta** (4); **agiriaren gastuak** (4); **agiriaren ondoren** (4); **agiriaren pasarte** (6); **agiriaren sinatzaileek** (5); **agirien arabera** (5); **agirien artean** (10); **agirien bidez** (6); **agirien bila** (5); **agirien eta** (6); **agirietan egunkaria** (4); **agirietan eta** (4); **agiriren bat** (8); **agiririk eman** (5); **agiririk ere** (4); **agiririk ez** (25); **agiririk gabe** (9); **aipatutako agirian** (4); **askatasunaren agiriak** (4); **atzemandako agiriak** (5); **atzemandako agirietan** (4); **aurkeztutako agiriak** (5); **azken agiriak** (4); **azken agirian** (8); **azken agiriaren** (4); **bere agirian** (6); **bere agirietan** (5); **dauden agiriak** (4); **dio agiriak** (25); **dira agiriak** (4); **diren agiriak** (9); **ditu agiriak** (4); **dituen agiriak** (5); **dituzten agiriak** (5); **du agiriak** (17); **duen agiriak** (4); **duen agirian** (4); **duen agiririk** (6); **dute agirian** (7); **dute agiriaren** (4); **duten agiriak** (11); **edo agiriak** (4); **egonaldi agiriak** (5); **eroste agiriak** (14); **eroste agiriaren** (4); **eroste agiriaren gastuak** (4); **eta agiriak** (41); **eta agiriaren** (5); **eta agirietan** (5); **etaren agiriak** (14); **etaren agiriaren** (7); **euskal agiriak** (4); **frogatzen duten agiriak** (4); **gaixo agiriak** (8); **gaixo agiriarekin** (5); **gaixo agirien** (8); **hainbat agiritan** (7); **hitz agiriak** (4); **hitzez hitz agiriak** (4); **igorritako agirian** (8); **inguruko agiriak** (4); **inolako agiririk** (7); **irakurritako agirian** (7); **irakurritako agiriaren** (4); **itun agiriaren** (6); **itun agiriaren aurrean** (4); **jasotako agiriak** (5); **kaleratutako agiriak** (6); **kaleratutako agirian** (12); **mediku agiriak** (4); **nortasun agiriak** (21); **nortasun agirian** (6); **nortasun agiriaren** (10); **nortasun agiriko** (7); **nortasun agiririk** (19); **nortasun agiririk gabe** (4); **onartutako agirian** (6); **osasun agiririk** (4); **plazaratutako agiriak** (5); **plazaratutako agirian** (12); **plazaratutako agiriaren** (4); **salamancako agiriak** (5); **senda agiriak** (5); **sinatutako agirian** (5); **zabaldu zuen agirian** (4); **zabaldutako agiriak** (4); **zabaldutako agirian** (9); **zioen agiriak** (5); **zor agiriak** (4); **zuen agiriak** (13); **zuen agirian** (14); **zuten agiriak** (6); **zuten agirian** (7)

---

agiridun *iz* agiria duena.

Dena den, beti esan dezakegu ez dagoela historian **agiriduna** izan beharrik zinema maitatzeko. Iñigo Aranbarri

---

agirika ik **agiraka**; **agerika**.

---

agiritegi *iz* artxiboa.

Biblioteka eta **agiritegietan** dauden plantillen "ezegonkortasuna" nabarmentzen da testuan, baita sailkapen eta katalogazioaren "hutsune larriak" ere, eta, ondare arkitektonikoari dagokionez, "desagertze arrisku latza". Berria - Kultura

Ukatu egiten zizkiguten beti, Bartzelonako **agiritegiak** suak galdu zituela esanez. Jokin Urain

Txalaparta argitaletxearen ETAren historiari buruzko bildumak ere Lazkaoko **agiritegia** izan zuen oinarri nagusi. Berria - Harian

Zubiraino iritsi zen, erromatar garaikoa Frantzisko Montoia Sagarrak zioenez, baina ez zen horren frogarik ez udaletxeko **agiritegian**, ez eliz artxiboan ere. Felipe Juaristi

Sailburuak *Aizan* elkarteak antolatutako jardunaldien hasiera ekitaldian parte hartu zuen, atzo, Gasteizen; biltzar hori gaur amaituko da, Diputazioaren **Agiritegian**. Berria - Euskal Herria

Bere **agiritegian** kaxoi bat zegoela ikusi genuen, "Konfiskatuak eta oso arriskutsuak" jartzen zuena. Iñaki Mendiguren

Heriotza zigorra gainean zuten presoek azken egunetan edo azken orduetan idatzitako eskutitzen transkripzioak makinaz eginda daude "Abertzaletasunaren **Agiritegia"-ren** zigilua daramaten paperetan. Jokin Urain

Halako kritika bat Jaurlaritzari, beste hamaika lanen osterako utzi duelako **agiritegiarena**. Iñigo Aranbarri

Irargi 1984an sortu eta sei urtera Eusko Jaurlaritzak Kultur Ondarearen Legea onartu zuenetik, Irargik kudeatzen du EAEko **agiritegi** eta ondare dokumentalari buruzko politika guztia. Berria - Harian

2004 eta 2005erako proiektuetan Inbertsio Plan Berezia dago: 75 milioi euro era askotako helburuekin (Energiaren Garapena, Etxebizitza, Euskadiko **Agiritegi** eta Liburutegi Nazionalak, edo Osasun Finantzak). Berria - Euskal Herria

Eresbilekin lankidetzan, irudi-**agiritegi** bat sortu musikari buruzko irudiekin . Berria - Kultura

Donostiako Udal **Agiritegian** eginiko ikerketak hainbat Rivastarren eta Sanztarren berri eman digu 1905eko erroldan, ez ordea Rivas Anjita-renik ez Sanz Llorente-renik. Koldo Izagirre

Eresbilekin lankidetzan, irudi-**agiritegi** bat sortu musikari buruzko irudiekin (06-07) .Han zeukatean, den-dena, nire aurrekarien kondena-**agiritegian**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abertzaletasunaren arteako agiritegian (4); **bere agiritegian** (3)

---

agiritxo *adkor iz* agiri xumea.

Zakurrak eskatzen duen gauza bakarra: maitasun pixka bat, adiskidetasun **agiritxo** batzuk eta jan hondarrak. Gotzon Garate

---

agirizain *iz* artxibozaina.

Idazkari: Elihoref eta Ahias, Xixaren semeak; **agirizain**: Josafat, Ahiluden semea. Elizen arteko biblia

Joab, Tzeruiaren semea, zuen gudalburu; Josafat, Ahiluden semea, **agirizain**; Elizen arteko biblia

agirretar *izlag/iz* Koldo Izagirrek sortutako Metxa pertsonaiarengandik eratorritako pertsona izaera.

Koldarkeriak ez ote zaitu eramaten halako garai **agirretar** baten desiran ezkutatzera? Hasier Etxeberria

Eta Carmen Lopezenean euskal borrokalari askok Espainiako herri xehean bilatzen duena gertatzen da: **agirretarren** borroka ezagutzearekin batera ulertu egiten baitu, hedabide gezurtien gainetik eta mendekuaren azpitik. Markos Zapiain

Orain samur, orain erre, beti zerbait makinatzen, bere nortasuna hobekienik definitzen duena **agirretarra** izatea da. Pablo Sastre

Ez dizuet esan: **agirretarrek** asko dute garciatarretik. Iñigo Aranbarri

---

agirretartasun *iz* agirretar izatearen nolakotasuna.

Ez baita abizen-zori bat edo geografiaren gorabehera, izan ere, autoreak (frase gogoangarrizko batez) esaten digunez, " **agirretartasuna** ez baitu sorlekuak ematen, baizik eta erorikoen minak". Pablo Sastre

---

agirretartu, agirretar(tu), agirretartzen da *ad* agirretar bihurtu.

-Lasai, zuzendari jauna, badirudi garantiak dauzkagula... -esan nion, esaten nionaz asko ulertu gabe, **agirretartzen** hasia nintzen neu ere. Koldo Izagirre

---

agitadore *iz* asaldatzailea.

-Agitadore edo nahaslea -gogoratzen ari nintzen-, finantzaria, herriko batzordeko partaidea, asaldaria, armadaren izen onaren zikintzailea, milizianoa, salataria, medikua frontean, propaganda zabaltzaile zorrotza eta zinikoa... Edorta Jimenez

---

agitato *iz* musikan, tempo bizia baina ez sobera azkarra.

Egun batean "tristezza" sakon batekin iritsi nintzen entsaiora, eta "andante" jo beharreko pieza halako "dolcissimo" makal batekin hartu nuen; harrituta, pieza haren egitura eta harmoniak tempo goibel hartara " **agitato** " jostarinera baino hobeto egokitzen zirela ikusi nuen. Pako Aristi

---

agitazio **1** *iz* inarrostea, asaldura.

Arrakasta itzela bildu dute berriz ere, ikusle kopurua ala gelan sumatu satifazio burbuilen **agitazioa** ikustea salbu. Herria

2 ezinegon eta protesta egoera kolektiboa.

- **Agitazio** eta Propaganda atalaren agindua? Koldo Biguri

3 ***agitazio termiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Agitazio termikoa, molekulek, tenperatura eta materiaren egoeraren arabera duten mugimendu kaotikoa da. ETC-entziklopedia

Tenperatura igotzean, gorputzen partikulak **agitazio termiko** handiagoa izaten dute. ETC-entziklopedia

Gas molekulen **agitazio termikoak** bi eragile nagusi ditu: eguzki-erradiazioa eta molekulen artean gertatzen diren ausazko talkak. ETC-entziklopedia

Gasen teoria zinetikoan, materiaren oinarrizko osagaien **agitazio termikoaren** mailaren funtzio modura. ETC-entziklopedia

Disoluzioan, etengabe alda daiteke kate jakin baten konformazioa, **agitazio termikoaren** ondorioz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Partikularen gainazalari lotuta **agitazio termikoa** gainditzeko bezain estu dauden ioiak (nahiz eta tarte baterako izan) adsorbatuta daudela esan ohi dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ur likidoan, molekulen momentu dipolar osoaren bektoreak norabide guztietan orientatuta daude, zoriz eta ausaz, tenperaturaren funtzio den **agitazio termikoa** dela eta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Agitazio termikoa dela eta, banakako lerrokadurak iraultzen dira, eta batez besteko lerrokadura soilik geratzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

agitu, agi(tu), agitzen da *ad ipar* gertatu.

Istorioak, gertaerak, gorabeherak, nahi den guztia **agitu** zait. Monika Etxebarria

Bizitzan **agitu** zaizkidan makur andana edateari zor dizkiot: honako auto hau zehatu, horrako neska hori uxatu, harako nagusi harekin etsaitu, Kristinarekiko harremanak. Aingeru Epaltza

Bi eskolaren arteko atsedenaldian **agitu** zen. Aingeru Epaltza

Üsügi **agitzen** dena maleruski. Herria

Josurekikoa **agitu** eta pare bat ordu geroago, gurea izandako etxeko ataritik berrogeita hamar bat metrora nintzen, auto barnean. Aingeru Epaltza

Arto-jorratik zetorren ilunpe batez **agitu** zen bortxazko apaina. Itxaro Borda

Ninikak askatu zituenean, ohartu zen ez zela deus ere **agitu**; sosegatu zen. Itxaro Borda

Haietaz hitz egin diogu, eta pozgarri **agitu** zaio, inondik ere, berria. Juan Garzia

Une harez geroztik, iruditu zitzaidan gertaera desatsegin bat **agituko** zela. Monika Etxebarria

Herio bat **agitzen** zenean, lehen behintzat, erleak abisatzen ziren: "Erle maiteak, etxeko andere zaharra hil da! Itxaro Borda

Baina zeruek nahi izan dute, ni zigorturik beronekin, eta berau enekin, beren azote eta borrero **agitzea** ni. Juan Garzia

Itotzear zihoanari **agitzen** zitzaion maneran, urteak burumuineko pantailan abiadura handian iragan zitzaizkion. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **agitu zen** (13); **agitzen da** (3); **agitzen den** (3); **agitzen dena** (3); **agitzen diren** (3)

---

agitz *adlag* asko; oso.

Ongi erreparatzen badiozu, fragata baten soslaia ikusiko duzu ate zatar honen burdinan ere, pintura beltzak guztiz estaltzea lortzen ez duen irudia, maisuak Zubimendiri arbelean kolorezko klarionez eginarazten zizkion Pinta, Niña eta Santa Maria baino **agitz** ederragoa. Koldo Izagirre

"Mugaldea lurralde **agitz** emankorra da", esan zuen egileak bere bigarren poema liburua aurkeztean (Jendakiak urruneko familiatan izan zen lehena). Berria - Kultura

---

aglomeratu **1** *izond/iz* materialez mintzatuz, hainbat gairen zatiz osatua.

Panel **aglomeratuz** egindako ate sinple eta dekorazio-konplexurik gabekoaren leihakumetik Josebak ia ezin zituen ikusi bezeroak. **Aglomeratu** fabrika batean hasi zen. Iñaki Zabaleta

2 *aglomeratu asfaltiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Aglomeratu asfaltikoa, asfaltoen nahasketa edo asfaltoen agregakinak nahastuta eta geruzetan zabaltzen diren asfalto eta mineral material (agregakin eta hauts nahasketa) trinkotuak dira; beroan nahastuz egiten da eta behin hoztuta masa gogorra bihurtzen da. ETC-entziklopedia

3 *taula aglomeratu* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Gehienak akrilikoak dira, oihalean, **taula aglomeratuan** eta kartoi mehean egindakoak. ETC-prentsa

Margolanen oinarria sabai faltsuak dira, eta **taula aglomeratuekin**, prentsaketa eta hidrofugoekin egin zituzten. ETC-prentsa

Zurezko **taula aglomeratu** ignifugotua M1-M2. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aglomeratzaile *(corpusean ez dago; ETCn **47** agerraldi)* *iz* aglomeratzen duena.

Aglomeratzailea, erreakzio fisikoak medio material bat edo gehiagoren zatiak lotzeko gaitasuna duen materialari deitzen zaio. Eraikuntzan buztina da **aglomeratzaile** ezagunena. ETC-entziklopedia

Beste algoritmo pare baten bidez -complete linkage izenekoa eta Ward-en eredua- prozesu **aglomeratzaileak** edo fusionatzaileak aurkezten ditu: baliabide honen bidez hizkuntza-berdintasunaren mailarik gorena duten guneak biltzen dira, desberdintasunik gutien dutenak bilarazten dira. ETC-literatura, saiakera

- Ohantze fluidizatuko pikortatzaileen kasuan, beste hauek: sarreran eta irteeran aireak duen emaria eta tenperatura, atomizazio-airearen presioa, hautsaren tenperatura, likido **aglomeratzailea** gehitzeko abiadura eta iragazkiak ase arte igarotzen den denbora. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zurezko txirbil mehez, eskuarki pinuzkoez edo kimikoki tratatutako zurezko zuntzezkoez, osatutako materiala, isolatzaile gisa erabiltzen dena; esaterako, luzituetako **aglomeratzaile** gisa edo junturak zigilatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezaugarri **aglomeratzaileak** dituzten produktu hidratatuak sortzeko ahalmena dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Funtsean, ur edo bestelako **aglomeratzaile** pixka bat izan ohi duen hauts-masa bat presio bidez trinkotzen da lortu nahi den forman. ETC-zientzia, zuzenbidea

Atal honetan, lurzoruko partikula mineralekin kontaktuan jartzen direnean sortutako propietate **aglomeratzaileak** dituzten materialei buruz hitz egiten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aglomerazio **1** *iz* hiriguneak eta inguruko guneek osaturiko multzoa.

Ez ote da hor handi handia agertzen "herri elkargoek" edo "hiri **aglomerazioek"** berdin, beren kudeamoldean duten "defizit" demokratikoa. Herria

M. **aglomerazioak** kasik doblea pagatzen duela momentu honetan. Herria

Mortalenak aldiz hiru dozier pisu eraman beharko ditu, **aglomerazio** kontratuaren barnean zutik ezarri beharko diren hiru egitura larri dira horiek: Montauryn zientzia fakultatea, Barrako gune ekologikoa eta azkenik Angeluk baitezpadakoa duen kultur gela. Herria

2 *aglomerazio elkargo* *(corpusean ez dago; ETCn **57** agerraldi)*

BAM hiri elkargoko buru hiru urte eta erdi egonen dela pario horren kausitzeko, hara zer erran duen **aglomerazio elkargoko** presidenteak, geroagokoak geroko. ETC-prentsa

Hiri Elkargoa ala **Aglomerazio Elkargoa** izanda ere, lehen aldiz, Iparraldeak, ezagupen politiko-administratiboa izateaz haratago, hautetsi, eskumen eta aurrekontu propioak izango lituzkeen instituzio integratu bat edukiko luke. ETC-prentsa

Legearen arabera, **Aglomerazio Elkargo** izaera edukiko duen instituzio berriak, honako eskumenak ukango lituzke: garapen ekonomikoa: eremu komunitarioaren kudeaketa: etxebizitzaren oreka soziala: hirigintza eta zaborren kudeaketa. ETC-prentsa

Turismo bulegoak doako sistema bat dauka, eta duela bi urte beste egitasmo bat bultzatu zuen Euskal Kosta-Aturri **Aglomerazio Elkargoak**: bizikleta elektrikoak. ETC-prentsa

1995ean Frantziako Industria eta Telekomunikazio Ministerioaren deialdiari erantzuteko asmoz Euskal Kosta-Aturri **aglomerazio elkargoan** sortu zen, "informazioaren errepidearen" gobernu ekimenaren zati bezala. ETC-entziklopedia

Bidarte eta Bokale (Lapurdi) Bokale udalerriek, herri elkargoren batean sartzeko ez, baizik Euskal Kosta-Aturri BAB hirigune elkargo **aglomerazio elkargoan** sartzeko interesa zuten. ETC-entziklopedia

---

aglutinante *izond* hizkuntzez mintzatuz, osagaiak banako morfologiko berria osatuz biltzen direna.

Jada tesi doktoralaz gero, kultura modernorako euskararen berezko ezgaitasunaren arrazoi funtsezkoa horren natura eranskaria - **aglutinantea** - da, giza mintzamenaren garapideko estadio primitibo bati, ahalbide linguistikoen garapenean maila apal bati, dagokion izaeratzat jotzen dena. Joxe Azurmendi

---

aglutinatu, aglutina(tu), aglutinatzen du *ad* bi osagai batu edo bildu gorputz trinko bat osatuz.

Gero teila horiek kare-urez zurituko dira, adreilu-hautsezko zarpeatua ez dezaten bota; izan ere, teilak labean erretzerakoan hartu duen lehortasunarengatik ezin izaten du geruza hori ez onartu eta ez eutsi, tartean ez baldin bada karea sartzen, bi elementuak **aglutinatuz** bat egitera iritsiz. Santiago Iruretagoiena

---

aglutinatzaile *(corpusean ez dago; ETCn **220** agerraldi)* *iz* aglutinatzen duena.

Esker txarreko izan ohi gara albiste ilunekin: ez diegu sekula haien pertinentzia **aglutinatzailea** eskertzen. ETC-literatura, saiakera

Iñaki Martinez de Lunak landutako proposamenen bidetik, orain arteko diskurtsoak gainditu eta euskararen aldeko ahalik eta diskurtsorik zabalena eta **aglutinatzaileena** eraikitzeko, oinarrizko kontzeptu hauek garatzea proposatzen genuen: bizikidetza, identitatea, berdintasuna, aniztasuna, erantzukizuna, justizia eta errespetua. ETC-literatura, saiakera

Euskara hizkuntza **aglutinatzailea** da, euskararen ordenamenduak ez du bat egiten inguruko hizkuntzen bidean. ETC-literatura, saiakera

Labur beharrez, munduaren ikusmolde zientifikoak bere burua programa modernista baten parte eta esparru ikusten zuela esan dezakegu; programa modernista **aglutinatzailea**, ilustrazio sozial eta politikoaren, zientziaren eta teknologiaren zereginean sinesten zuen konstruktibismoarekin bateratu nahi zuena, hain zuzen ere. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, Google, Yahoo! eta enparauek ez dute kontuan hartzen euskara beren bilaketa-aukeretan ezta euskararen nortasun gramatikalak ere, hots, bere izaera **aglutinatzailea**. ETC-literatura, saiakera

XVI. mendea arte Kataluniaren batasun politikoak idazkietan ageri zen eredu idatzian uhin **aglutinatzaileak** hedarazi zituen. ETC-literatura, saiakera

Bikotekideen arteko diferentziek **aglutinatzaile**-eginkizuna bete behar izan zuten ezkon-bizitzaren lehen fasean, eta baita geroago ere beharbada, nahiz eta bakoitzak bere nortasunari azkena arte eutsi. ETC-literatura, saiakera

Zentro honek zeregin garrantzitsua bete nahi du hezkuntza-baliabide gisa, inguru honetan biltzen diren ezagutza arlo guztien elementu **aglutinatzailea** baita. ETC-prentsa

Aglutinatzaile gisa listua edo animalien koipea erabiltzen zuten. ETC-prentsa

Horrez gain, mugimendu **aglutinatzailea** izateko sorrera mito batzuk behar ditu, mito horien erreferentziek eta balioek familia ekologistako korronteak substratu komun batekin identifikatzea ahalbidetu dezaten. ETC-prentsa

Futbolak **aglutinatzaile** nazional gisa duen potentzial horretan biztanleriaren erdia, alegia emakumeak, kanpo uztea ez al da arazo bat? . ETC-prentsa

Plastikozko euskarri edo mintza daukate, poliesterrekoa, non material ferromagnetiko fina ezartzen den, **aglutinatzaile** batekin nahastuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zuntz mineralen eta **aglutinatzaile** ez-organiko baten nahastea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Errealitatea hain nabarra izanik, teoria **aglutinatzaileek** ezin dute ekarri promesten zuten mundu argitsua. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aglutinazio *iz* bi osagai batzea edo biltzea gorputz trinko bat osatuz.

Hau da **aglutinazioa** : bi termino edo gehiago, berez desberdinak direnak baina eskuarki perpausean sintagman agertu ohi direnak, erabatekoa -edo analizatzeko zaila- den unitate batean lotzea. Isabel Arrigain

Ez da gertaera fonetikoa faktore bakarra, zeren **aglutinazioa** , gero aztertuko duguna, orobat aldaketa faktorea baita (**aglutinazioaren** ondorioz, elementu batzuen konbinazioa banako bilakatzen da). Isabel Arrigain

Analogiari esker, **aglutinazioak** mota sintaktikoak sortzen ditu, eta horrenbestez, gramatikaren mesedetan dihardu. Isabel Arrigain

Analogiaren eta **aglutinazioaren** arteko aldea harrigarria da: [...]. Isabel Arrigain

Gero, **aglutinazioari** esker, sendotua gertatuko zen elkarketa psikologiko hori. Isabel Arrigain

Analogia izan da hura **aglutinazio** emankor bihurtu duena. Isabel Arrigain

Berezko **aglutinazioa** , hau da, sintagmaren elementuen sintesia, banako berri batean. Isabel Arrigain

Halakoa da **aglutinazio** prozesua. Isabel Arrigain

---

agnanorisi ik **anagnorisi**.

---

agnatu *iz* Antzinako Erroman, seme-alaba izan gabe aita baten autoritatearen mendean zegoena.

Baina berdin zion oinordekoa -edo, oinordekorik ez izanez gero, **agnatu** hurbilena- gizonezkoa edo emakumezkoa izatea, zeren eta, amaren aldetiko ahaideak oinordeko ez zirenez, nahiz eta emakume oinordeko bat ezkondu, ondasunak beti familia berean geratzen baitziren. Iñaki Iñurrieta

---

agnosia *iz* zentzumenen bidez hautematen dena perzibitzeko gaitasunik eza.

Kolorearen eta ñabardura-kontrastearen galeraren kontua ematen zuen, eta ez hainbeste ezagumeneko akatsa, **agnosia** . Xabier Olarra

Hasieran pentsatzen genuen kolore- **agnosia** edo kolore-anomia izango zuela, ausaz: kolore-asoziazioaren eta kolore-izenen gaineko akatsak, garuneko alde jakin batzuetako lesioen ondoriozkoak izan ohi direnak. Xabier Olarra

Kolore- **agnosia** duen gaixo batek ere koloreak ondo asmatuko ditu, baina ez litzateke batere harrituko banana urdin bat emango bagenio. Xabier Olarra

Deskribatutako kasu askok bestelako problemak ere bazituzten arren (ikus-eremuaren murrizteak, ikusmen- **agnosia** , alexia, etab.), ematen zuen asoziazio-kortexaren erdialdean zeudela lesio erabakigarriak, tximuarengan V4 deritzon eremuaren homologoetan. Xabier Olarra

---

agnosiko *izond* agnosiari dagokiona, agnosiak joa.

Agnosiko edo, bestela esanda, gogamenez itsu balitz bezala portatzen zen: ikusi bai, alegia, baina zer ikusten ari zen deszifratzeko gai ez balitz bezala. Xabier Olarra

Neure paziente **agnosiko** bat ekarri zidan gogora. Xabier Olarra

Erretina eta nerbio optikoa aktiboak zituen, bulkadak hartu eta igortzen zituzten, baina garunak ez zien tankerarik ematen; neurologoen hitzetan, **agnosiko** zegoen. Xabier Olarra

---

agnostiko 1 *izond* agnostizismoarena, agnostizismoari dagokiona.

Gizakia unibertsoaren mekanika ulertzera inoiz ez dela iritsiko esaten zuen Du Bois-Reymond baten joera **agnostikoaren** kontra, Berthelot edo Metchnikoff-en joerak daude. Josu Zabaleta

Kristau-errebelazioa desitxuratzean, Erdi Aroko pentsaera zuten Goiz Aro Modernoko Mendebaldeko historialariak erasopean jartzen ari ziren, Berant Aro Modernoko bai dogmatismo zientifikoaren aldetik eta bai eszeptizismo **agnostikoaren** aldetik. Iñaki Mendiguren

2 agnostizismoaren jarraitzailea.

Frantzian hemeretzigarren mendetik hogeigarrenera igarotzean belaunaldi-kopuru bera behar izan zen ofizialki konbertituriko burges **agnostiko** edo ateoen biloben artean benetako katoliko erlijiozaleak sortzeko. Iñaki Mendiguren

Ez da gure xedea pertsonak erlijioso, ateo edo **agnostiko** bihurtzea. Askoren artean

Auzoko nire lagunen familietako giroa ez zen batere gauza hauen aldekoa, gehienak praktika erlijiosoa bazter utziak baitziren, ateoak, **agnostikoak** edo indiferenteak. Joan Mari Irigoien

Jaiotzak kontrolatzen zituen ingeniari **agnostikoak** nekazari inkontinente eta superstiziosoagandik honek ingeniariagandik adina zeukan ikasteko. Iñaki Mendiguren

Emakumea naiz, sozialista, **agnostikoa** eta dibortziatua. Berria - Mundua

Ni **agnostikoa** nintzenean, urte batzuez gustura ibili nintzen harro eta libre, erlijioaren gauza horiek mespresatuz. Herria

Ezkontza ez da seme-alabak eduki ahal izateko beharrezko baldintza ateo eta **agnostiko** gehienentzat. Berria - Euskal Herria

Positibistek (hala nola, Auguste Comte-k) alde batera utzi zuten, oinarri enpirikorik ez zuelako, eta **agnostikoek** ere bai, teologiarekiko lotura historikoarengatik. Askoren artean

---

agnostizismo 1 *iz* doktrina filosofikoa, giza adimenak absolutua ezin duela ulertu dioena.

Jantsenismo gisa zokoratua, deismo, arrazionalismo, **agnostizismo** eta ateismo gisa agertu zen berriro. hor Sokratesen **agnostizismoaren** izpia ikus dezakegu. Iñaki Mendiguren

Nik banekien gorabehera asko izan zituela, **agnostizismotik** sinesmen itsura eta sinesmen itsutik ezertxo ere ez sinestera iragan zela. Joan Mari Irigoien

Hogei urtez **agnostizismo** ilunean bizi izan naiz, beste hogeita hamar urtez fedeak argituan. Jenaro Garate

Nire ezagumenaren eta fedearen oinarri garbirik gabe geratu eta besterik ezinean Jesuitetatik nahigabez kalera atera nintzen, **agnostizismo** sakon ilunean hogei urteko ibilaldia hastera. Juan Garzia

Azkenik, kristau zenez gero,... bere garaiko **agnostizismo** zientifikoak larriturik zeukan. Joseba Zulaika

2 *agnostizismo ahul* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Agnostizismo ahula , "agnostizismo enprikoa" edo "agnostizismo leuna" bezala ere ezaguna, pentsamendu metafisiko agnostiko bat da, Jainkoaren existentziari buruzko jakintza eskuragarria dela dioena, baina gizakiak oraindik behar den jakintza edo garapen-maila eskuratu ez duela ere aipatzen duena. ETC-entziklopedia

3 *agnostizismo gogor* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Agnostizismo gogorra , "agnostizismo positiboa" edo "zorrotza" bezala ere ezaguna, Jainkoaren edo jainkoen existentzia frogatzea edo ezeztatzea ezinezkoa dela babesten duen ideia filosofikoa da. ETC-entziklopedia

ago *(corpusean irud/hed soilik) interj* zaldiei eta beste zama abereei geldi daitezen esaten zaien agindu hitza.

-Ago geldi, kankallu ori, korrika-apostua diagu-ta. Iñigo Aranbarri

---

agoa *iz* sutegian gorituriko burdin zatia.

Labe haren leiho zabal guztietatik suzko **agoa** hura ikusten nuen, eta hantxe, labe hartan, hilik izango zela pentsatzen nuen. Josu Zabaleta

---

agoantaezin *(corpusean **aguantaezin** soilik) izond* ezin agoantatuzkoa.

Iluntzero-iluntzero ordu eta leku jakin batean, bere etxean bederatzietan puntuan, bere buruari egiten zioten kontrola **aguantaezina** iruditu zitzaion bat-batean. Joxemari Iturralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aguantatu behar** (8); **aguantatu behar izan** (3); **aguantatu behar izaten** (3); **gehiago agoantatu** (4)

---

agoantatu, agoanta(tu), agoantatzen *(ETCn **734** agerraldi; orobat **aguantatu 452**)* **1** du *ad* jasan, eraman.

Gogoa jan, jasan, **agoantatu**, ezer gertatuko ez balitz bezala aurrera egin? Lourdes Oñederra

Ea zenbat **agoantatzen** dugun, hausten garenean barre egiteko krudeltasun osoz! Pako Aristi

Goio itzuli zen berriro nire albora, pupitre bikoitzean Lodiak uzten zidan baztertxoan bi egunez **agoantatu** ondoren. Joseba Sarrionandia

Akabuko puntilla! Ezin dut gehiago **agoantatu**. Patxi Iturritegi

Azkenengoz atxilotu nindutenean ez ninduan kapaz beste tortura saio bat **agoantatzeko**, benetan esaten diat. Unai Iturriaga

Gixajoa, **agoantatuko** al duzu egun osoa? Pako Aristi

Berentzat gero eta zailagoa da **agoantatzea**. Berria - Harian

Pentsatu nuen hobe zela **agoantatzea** lana galtzea baino. Juan Martin Elexpuru

Ez daki, berdin dio, hesteek **agoantatzen** badiote hor nonbait, emango dio buelta. Pako Aristi

Ondo jango duzu eta eroso egingo duzu lo, baina horretarako nire erritmoa **aguantatzeko** gauza zarela erakutsi beharko duzu lehenengo. Jon Arretxe

Esperantza horrek eman zidan adorea, eta ez beste ezerk, bolada hartako gosea **aguantatzeko**. Jon Arretxe

-Martxa hau ez zegok **agoantatzerik**, gauero erre-edanean.Hamaika umiliazio **aguantatu** behar izaten nituen, batere kexurik edo keinu txarrik azaldu gabe, egunero bizia hamaika bider barkatzen zidan morroi harengandik. Iñaki Iñurrieta

Ia ezin zuten **agoantatu** ere beroagatik eta goseagatik. Josu Zabaleta

Harriak **agoantatuko** dizkizu eman nahi dizkiozun astindu guztiak, baina gizona astindualdi latz batekin bizitza guztirako porru eginda gelditzen da. Pako Aristi

Borondaterik onenarekin ere, nork **agoantatuko** lizkidake grabadora honek **agoantatzen** dizkidan orduak? Pako Aristi

---

agoante *(orobat **aguante**) iz* egonarri, pairakortasuna.

Jexux amorrarazi egiten zuen, **agoante** eskasekoa zen eta. Xabier Etxabe

Izugarrizko **aguantea** zeukaten dantzariek! Berria - Kultura

---

agoazil ik **aguazil**.

---

agobiante *izond* agobiatzen duena.

Apur bat **agobiantea** da lehenengo etxea erretzea eta gero itota hiltzea. Unai Elorriaga

Eta apur bat **agobiantea** da hori. Unai Elorriaga

Baina gauza biak aldi berean gehiegi da eta apur bat **agobiantea**. Unai Elorriaga

---

agobiatu, agobia(tu), agobiatzen du *ad* larritu, ito.

Ez duzue ikusten, esaten zien, pertsona asko ari zaretela molestatzen, esaten zien, pertsona asko daukazuela **agobiatuta**, esaten zien, igual hobeto beste inora bazoazte, esaten zien. Unai Elorriaga

Komenigarri bezain polita izango litzateke lagunak logelara sartu ahala ez irtetea, azkenerako hamabost bilduko ginatekeelako bertan, zein baino zein **agobiatuago** baina pozik. Unai Elorriaga

Han banengo begira dagoen gizon bakartiaren bekaitza senti lezakeen gizon **agobiatua** ere izan nintekeela irudika dezaket. Pako Aristi

Hori ikusi zuten behintzat Marcos eta Lucasen begi **agobiatuek**. Unai Elorriaga

---

agoiztar *(orobat **aoiztar** g.er.) izond/iz* Agoizkoa, Agoitzi dagokiona; Agoizko biztanlea.

Binaka, Aritz Ugalde eta Iñigo Zabala **agoiztarrak** dira saristatuak izan, Pantxoa eta Peio-ren "Txikia" kantuarekin. Herria

Agoiztar askok herria uzteko asmoa agertu dute. Herria

Tantoa erdiesteko garaian, berriz, **agoiztarrak** burua hotz mantentzen asmatu zuen; 22rako bidean hemeretzi tanto lortu zituen.Larrialdi Planaren arabera bozgorailuak eta sirenak jarri dituzte Agoitzen eta inguruko gainontzeko herrietan, baina **agoiztarrek** argi dute, zerbait gertatzen bada, ez dutela deusetarako balioko. Berria - Kirola

Urtegiko hormaren ondoan bizitzeak ematen dien zilegitasunarekin mintzatzen dira, ordea, **agoiztarrak**. Edurne Elizondo

Aoiztarrak txapelketa lau aldiz eskuratu baldin badu ere aurtengo edizioko kanporaketa guztiak jokatu behar izan ditu. Berria - Kirola

---

agonarazi, agonaraz(i) agonarazten du *ad* agontzera behartu.

Katalina bere senarraren gorputzaren gainera joan zen eta **agonarazten** saiatu zen. Koro Navarro

---

agondu, agon(du), agontzen da *ad* etzanda dagoenak gorputzaren goiko erdia zutitu, eserita gelditzeko.

Agondu, ostiko batez manta baztertu eta pijamaren atorra lotu nuen. Fernando Rey

Viktorka Freie **agondu** eta adi gelditu zen. Fernando Rey

Harry **agondu** eta, lurrean eserita, arnasa gabe geratu zen. Iñaki Mendiguren

Batzuetan iruditzen zaio gela jirabiraka hasi dela eta orduan **agondu** egiten da, ohertzean eseri eta saiatzen da tinko begiratzen aurrean duen edozein puntutara. Joxemari Iturralde

Gero, ohean **agondu**, eta tapakiak erretiratu zituen. Inazio Mujika Iraola

Ahoa irekitzeko betarik eman gabe Krapotkin ohean **agondua** zegoen, seda urdinezko pijama soinean, bularra agerian. Matías Múgica

Horrela, ezpondatik zakurraren ulua etortzen entzun zenean, jendea ikaraturik **agondu** zen ohean eta izerdi hotza etorri zitzaien askori. Koldo Biguri

Mugimendu batez, ohantze gainean **agondu** da, lasaiago. Aingeru Epaltza

Nire eldarnioan, istripua izan aurretik bezala, bainuontzian **agondu** eta altxatu egingo nintzela pentsatu dut. Patxi Zubizarreta

Agondu nintzen, sasi gainetik hobeto zelatatzeko. Joxe Austin Arrieta

Orduan doi bat **agondu** zen, handik jaisteko prestatzen ari balitz bezala. Patxi Zubizarreta

Jauzi batez **agondu** nintzen ohean, mantak lurrera botaz. Alberto Ladron Arana

Irakasleak, eserlekuan **agonduta**, alboko mahaitxo batetik gutunazal handi bat hartu zuen. Alberto Ladron Arana

Oinaze handia eragin behar zion deabruzko tramankulu hark, baina berak, ukondoen gainean **agonduta**, hortzak estutu, eta eutsi egin zion, kexurik txikiena atera gabe. Inazio Mujika Iraola

Belar-pilaren gainean **agondu** zelarik, lan-jantzia bota nion altzora. Inazio Mujika Iraola

Bat-batean **agondu** zen, zurrun. Lopez de Arana

Ohean erdi **agondu**, eta musu doi-doi bat eman nion ahoan. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agondu da (3); **agondu egin** (9); **agondu egin zen** (7); **agondu eta** (11); **agondu nintzen** (7); **agondu zen** (16); **bat agondu** (3); **ere agondu** (3); **gainean agondu** (4); **ohean agondu** (16); **ohean agondu nintzen** (3); **ohean agondu zen** (7); **ohean agonduta** (4)

---

agonia **1** *iz* hil aurreko uneak, biziaren eta heriotzaren arteko azken borroka. ik**hilzori**; **hiltamu**.

Hiltzeko ordua burutik kendu ezinik zebilen -eta haren ozpinetik dastatua zen gaixorik egondako aldian-, eta gogoan erabili ohi zituen hurbilekoen **agoniak**. Patxi Zubizarreta

Herio kuku-gordeka sumatzen zuen, oinaze lazgarrien artean igarotako egun osoko **agonia** aurreikusten. Patxi Zubizarreta

Zonbait hiltzen ditu, bertze zonbait kolpatzen, orenak eta orenak gero **agonian** egoiten direnak. Michel Oronoz

Esperantzarik gabeko bere **agonian** erne egonik, iduriz bakean hil zen. Marzel Etxehandi

Bi egun eta hiru gau eman zituen **agonian**, eta orduantxe hil berria zen bere lagunaz gogoratzen. Josu Zabaleta

Laclosek zehatz aipatzen baitu Tourvel andreak bere **agonian** bizi duen eromena. Jon Muñoz

Odoletan ikusi nituen batzuk, masailezurra hautsirik, burezurra leherturik, bularra bala batez zulaturik, **agonia** geldian, hotel bateko gela batean bakar-bakarrik, beren zauriaz gogoratu gabe, beren zorigaitza baizik ez gogoan. Josu Zabaleta

Oraintxe **agoniako** dardaretan dago, haren heriotzara asistitzen ari gara. Joxe Azurmendi

Gorputza **agoniaren** ikaratan astinduko da eta bere begi eder urrunak zeureganantz zabalik eutsiko ditu, gauzak ulertu ez dituenaren keinuarekin. Joseba Sarrionandia

Besterik ezin genezakeen egin: euliaren **agoniari** begira egon; ikusi nola zihoazen dardarak pixkanaka motelduz gelditu arte. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bidelapurrei, beso-hankak hautsi ondoren, gurpila ematen zitzaien; plazako habe bati loturiko gurdi-gurpil baten gainean ezartzen zituzten eta hiltzen uzten, heriotza luzera kondenatuz, **agonia** mingarrira abandonatuz. Felipe Juaristi

Arrunt gaizkiturik nengoen, hil beharrean gaizkiturik **agonia** luze hartan. Koro Navarro

Gero, intziri apal bat eginez, astun erori zen bere anaiaren gainean, eta bere herioaren **agonia** bortitz eta oraingoan egiaz azkena zuen hartan, gorpu bihurtuta eraman zuen lurrera, hark iragarritako izumenen biktima bilakarazirik. Koro Navarro

Har ditzagun euskararen heriozko **agonia** bere muturren aurrean bizitzen ari zen gizon baten sentimenduak edo irudipenak; gizon hori artzaina zen, eta beraz, eskolan txorakeria intelektual gutxi ikasitakoa; gizon horri Fernando zeritzan eta tarteka bazekien bertso batzuk egiten ere. Iñaki Segurola

3 (hitz elkartuetan)

Lauaxetaren azken **agonia** hitzek, "Goiz eder onetan erail bear nabe", Lluchen heriotza ere iragartzen zuten. Joseba Zulaika

Agonia kutsua dutenak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

4 irud/hed ik **mindura**, **hilzori**.

Kolonoen **agonia** aintzat hartzen duela dio Sharonek. Berria - Harian

Sindikatu bi horiei "Navalen **agonia** luzatzea" leporatu die LABek, eta azaldu du "atzeraezina" dela Sestaoko ontziola ixteko prozesua. Berria - Ekonomia

Bidea idazle izatea da, loria eta ohorea, **agonia** eta estasia baita liburua idaztea. Berria - Kultura

Gaur arratsean bertutearen **agonia** ikusi dut. Jon Muñoz

Arantzazuko Ama Birjina eta Jesu Kristoren pasioa izan zituen gai kuttunak, aberriaren **agoniarekin** loturik betiere. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezjakitearen **agonia** jasan ezinezkoa gertatu zitzaidan azkenean, eta arduraz mugitu nintzen aurreraka, luze-luze besoak eta begiak beren zuloetatik atera beharrean, argi-izpi meheren bat atzemateko itxaropenaz. Koro Navarro

Jainkoa kartsuki otoizten dugu, Aliatuak igor ditzan eta urrun diezagun azken **agonia** hau. Michel Oronoz

Nire arrazako jende hauek ikusi ditut iritsi nintzenetik, pairatu dituzten **agoniak** ikusi ditut, ahora eramateko gero eta ogi gutxiagorekin igarotako urteak, gero eta gorputz meharragoak, itxaropenaren amaia. Ramon Etxezarreta

Edo iraganeko zorionaren oroitzapena gaurko estura da, edo gaur diren **agoniek**, izan ahal izan ziren estasietan dute jatorria. Koro Navarro

San Mamesen gol baten nahiaren eta ezinaren **agonian** bizi izan dira zaletuak igande batean bai eta bestean ere bai. Joseba Zulaika

Gizon haren **agonia** ez zen nire belaunaldiko idazleontzat Unamunoren **agonia** metafisikoa. Joseba Zulaika

Zuhaitzak moztu zituzten, batzuk lehergailu eta bonben eztandaz, eta haiek ere beren **agonian** giza itxura hartu zuten. Felipe Juaristi

Euskararen **agonia**. Joseba Zulaika

Ondo asko ezagutzen dut gure egoeraren larria, baina oraingoa ez da hiletaren ordua; izatekotan **agoniarena**, Unamunok hitz horri ematen zion zentzuan alegia: borrokarena. Xabier Mendiguren Elizegi

Mailegu emaile [...]: Finantza-**agoniaz** harantzago bizi den basatien tribuko kidea, egiten dituen eraso latzengatik beldurra zaiona. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agonia luze (4); **bere agonian** (4); **eta agoniazko** (3); **euskararen agonia** (3)

---

agoniako *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)* **1** *izlag* azken-azkenekoa.

Baskoniak Mickeal eta bere kide berriak hartu zituen mendean ACB ligako finalean, Fernando San Emeterioren saskiratze **agoniakoarekin**. ETC-prentsa

Cánovasek asmatutako sistemaren **agoniako** urteetan, asaldu politiko eta sozial handiko giro hartan, boterean zeuden eliteek ez zuten EAJ berriaren fraseologia erradikala bere horretan ulertu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Landaburuk "egoera **agoniakoan** dauden herrien kulturen arteko elkartasuna" deitu dio horri. ETC-zientzia, zuzenbidea

Uneoro sentitzen dut **agoniako** momentu hauek zehazki erregistratzeko tentaldia. ETC-literatura, saiakera

Eta ahots urratuarekin, eta errimak egiteko joera kezkagarriaz, **agoniako** omenaldiak xuxurlatzen dizkio patxada eta arima lapurtu dizkion damari. ETC-literatura, saiakera

2 *agoniako kanpaia*

"Bizitzan, lanean, esaten dut nik zenbaterainoko aldea dagoen ondoan kaskabilo bat baldin badaukazu edo **agoniako kanpaia**. ETC-literatura, saiakera

ANDONI.- **Agoniako kanpaia** entzutea bezalakoa duk. ETC-telebista

---

agonian *(corpusean ez dago; ETCn **106** agerraldi)* **1** *adlag* hilzorian.

Norbaitek geratu behar dik hemen, **agonian** daudenei ardoa ateratzeko. ETC-literatura, saiakera

Artean ez zegoen zeharo hozturik; hortik atera nuen koman egona zela, gau osoan **agonian**, odolusten. ETC-literatura, saiakera

Oraino badira dei bereziak, errepikak eta ezkil-inguratzeak, bataioentzat, ezteientzat, **agonian** direnentzat, festa hasteentzat eta prozesioentzat. ETC-literatura, saiakera

Arkitektoaren titanioak indartsuago distiratzen zuen, nonbait, ibai ondoko industria azken orduko **agonian** zegoenean, herdoila jan eta jan ari zen eremu erdi abandonatuan, krisi industrial gordinenaren sutan. ETC-literatura, saiakera

Azpimarratu dezagun segurtasunik eza balio positibo bat dela, **agonian** goxo egoteari utzi, beti defentsiban, eta eraikitzen hasteko aparteko abagune. ETC-literatura, saiakera

Agonian zegoen bere aita, luze gabe hilko zen Santa Mariako etxean, agian hiltzen ari zen orduantxe. ETC-literatura, saiakera

Zonbait hiltzen ditu, bertze zonbait kolpatzen, orenak eta orenak gero **agonian** egoiten direnak. ETC-literatura, saiakera

Hara zer den irudimena lar behartzea: Goriot Bianchon medikuntza ikasleak zaintzen du bere **agonian**. ETC-literatura, saiakera

Bainan jadanik **agonian** zen eta zenbeit orenen buruko botatzen zuen azken hatsa. ETC-literatura, saiakera

Esperantzarik gabeko bere **agonian** erne egonik, iduriz bakean hil zen. ETC-literatura, saiakera

Astebete pasatu zuen ospitalean, **agonian**, eta haren betiko kontrarioek denbora eduki zuten heriotzaren ondorengo diskurtsoa prestatzeko. ETC-prentsa

Egoera atzeraezinean edo **agonian** dauden gaixoek eta egoerak hala eskatzen duenean, sedazio paliatiboa hartzeko eskubidea dute. ETC-prentsa

Alferrikako lana lehiakideak auzolanean jartze aldera; ez hain alferra, ordea, **agonian** dagoen proiektuari bizi-itxura eman eta esperantza guztiak ez iraungitzeko. ETC-prentsa

Han ere **agonian** baitago hizkuntza. ETC-prentsa

Adineko auzoa **agonian** da. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 irud/hed

Agonian egoten zinen arratsaldeko seiak iritsi, zure gurasoek handik jaso eta Eibarrera bueltatzeko. ETC-literatura, saiakera

Unamuno **agonian** bizi den bitartean Leturiak edota Sartrek bizi-asperdura eraman behar dute (deserosotasuna, babesgabetasuna, larritasuna). ETC-zientzia, zuzenbidea

Hiria ere laino **agonian** sartzen zen, pustula itxurako argitxoek horiz zikintzen zituzten harriak, eta parrokia eta komentuetako ezkilak jotzen zituzten, purgatorioko arimen gogoratzeko, liturgi eskaintza berberaz bederatziurrenak eta hirurrenak eginez. ETC-literatura, saiakera

Munduarekin eta bizitzarekin **agonian**. ETC-prentsa

Telebistan garaikur gisara erakutsi ondoren, bost egun eta bost gau luzez eduki zintuzten euren atzaparretan; mehatxuz, burlaz eta jipoiez jositako 120 ordu amaigaberen **agonian**. ETC-prentsa

---

agoniatsu *izond adkor* agoniaz, larritasunez betea.

Unamunoren kasuan, Kristautasunaren kontraesanen esperientzia **agoniatsua** besarkatuko du kultura espainiarraren eta kristauaren iraupena nahi duelako. Joseba Zulaika

---

agoniko *izond* agoniari dagokiona, agonian dagoena.

Unamunoren jarrera **"agonikoa"** da formula honen adierazpen garbia. hizkuntzak, munduko edozein hizkuntzak, eta are gehiago hizkuntza **agoniko** batek, batu egiten du barrurantz, eta banatu eta bereizi kanporantz. Joseba Zulaika

---

agonismo *iz* agoniazko, ezinegonezko egoera.

Heroi homerikoaren nortasunarekin lotzen den zentzu agonikoa ez da kabitzen **agonismo** sokratikoaren baitan. Askoren artean

---

agonista *(corpusean ez dago; ETCn **142** agerraldi)* *izond* agonismoari dagokiona; biokimikan, antagonistaren kontrara, zelula-errezeptore batekin elkartuta erreakzio bat eragin dezakeena.

Testuan ageri den pertzepzioa, jakina, ez da euskal kulturaren edukia murriztu eta alde bakar batera errenditzen duten bertsioena, ezta euskara galduko delako hipotesi **agonista** euskara galtzea, jadanik, ezina da erabat lehenesten duten bertsioena ere. ETC-prentsa

Gaur egun ezin da esan demokrazia eredu bakarra dagoenik, hainbat eredu baizik, eta hori dela-eta Demokraziaren Teorian, jadanik, eredu guztiak dira aztergai (demokrazia merkatu gisa, demokrazia pluralista, demokrazia **agonista**, demokrazia erabakitzailea, demokrazia plurinazionala, eta abar). ETC-prentsa

Jaurlaritzak Klenbuterolaren eta B-**agonisten** garai bateko legezkanpoko erabilerak jada "kontrolatuak" dituela azaldu zuen Inclanek eta azken hamar urteotan, hilero-hilero "kontrol zorrotzak" egiten dituztela argitu zuen. ETC-prentsa

Laurogeita hamarreko urteetan botikagintza industriak bete beteko apustua egin zuen Triptan eta antzeko beste botiken alde, pentsatuaz neurohartzaileen **agonista** partzial horiek erabateko arrakasta lortuko zutela merkatuan. ETC-prentsa

Katekolamina sintetiko bat erabiltzen du (dobutamina), zeinak ß1en **agonista** gisa jokatzen baitu, bihotz-maiztasuna, bihotzaren lana eta O2-aren eskaera handituz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ligandoak **agonista** edo antagonista moduan aktibitate biologikoa eduki behar du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sintoma horien tratamendurako levodopa edo **agonista** dopaminergikoak edo antikolinergikoak erabiltzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beta-endorfina eta opioide hartzaileen **agonista** eta antagonisten eragina giza espermatozoideen erreakzio akrosomikoan denboran zehar. ETC-zientzia, zuzenbidea

CB2 errezeptorearen **agonista** endogeno nagusia 2-arakidonolglizerola da. ETC-entziklopedia

Fenilefrina **agonista** adrenergiko selektibo bat da (hau da, hartzaile adrenergikoak modu selektiboan estimulatzen ditu), ETC-entziklopedia

---

agor **1** *izond* iturri, lur eta kidekoei buruz mintzatuz, urik ez duena. ik**idor**; **siku**; **lehor**; **ihar**.

Egin poz-oihu, Jerusalem, emakume **agor** eta haurgabe horrek! Elizen arteko biblia

Jaunak nahi izan zuen bere zerbitzaria lur **agorrean** sustraiak dituen kimu berria bezala haztea. Elizen arteko biblia

Hareatza kiskalietan aintzirak, paraje **agorretan** iturburuak. Elizen arteko biblia

Gau batez, haurraren garrasiak baretu nahirik, bere bular **agorrak** haurraren ahoan jarri zituen eta, malkotan blai, aholkua eta laguntza eskatu zion Frantzisko dohatsuari. Askoren artean

Kablearen muturretik tiraka, zenbait suhiltzailek ahaleginean zihardute, arrantzari-bota luzeetan balantzaka, ibai-zola hil **agorrak** tipituan. Aingeru Epaltza

Berari egokitu zaizkion alde eta aldi haietatik kanpora (omen!) dagoen ilunpe miseriazkoaren beldur paranoikoak etsiarazten dio bere ongizatezko putzu **agorrean**; paranoia horrexek adiskidetzen du bere zoriarekin, neguak gizona etxearekin adiskidetzen zuen gisan. Iñaki Segurola

· Joritasun goxo honetan, bizitzaren iturri eta apar honetan murgildu zen arraren antzutasun hiltzailea, latoi puska bezala, **agor** eta soil. Anton Garikano

2 irud/hed

Orozbat pozik zegoen nehor ez zuelako eskuinaldean gisa horretako pentsu **agorrak** jazartzen zitzaizkionean; bidaiaren bakardadea gustatzen zitzaion, gizarteari ebatsiriko intimitatea. Itxaro Borda

Sumina zen gelditzen zitzaiguna, sentimendu trinko eta sutsu bat; jario lohitsu hark, gutxika-gutxika, den-dena estali zuen, eta, Vilma hildakoan, eremu **agor** eta mortu bat gelditu zen familia-harremanak izan ziren lekuan. Ander Irizar

3 haurrik ezin izan duena; fruiturik ematen ez duena. ik**antzu**.

Ez zuten haurrik, Elisabet **agorra** baitzen, eta urteetan aurreratuak biak. Elizen arteko biblia

Itxura batean birjina bat pertsona **agorra** da, baina bera da emankorrena ere bere bihotzean. Joan Mari Lekuona

Jaunak ernalkor bihurtu zuen Lea, ikusi baitzuen ez zuela Jakobek hain maite; Rakel, berriz, **agorra** zen. Elizen arteko biblia

Agor zena, haur askoz erdi da; askoren ama, berriz, agortu. Elizen arteko biblia

Bazen Tzoran Manoah izeneko gizon bat, Danen leinukoa. Haren emazteak ez zuen haurrik izan, **agorra** baitzen. Elizen arteko biblia

Agorra zara eta ez duzu haurrik izan; hala ere, sabelean sortu eta semea izanen duzu. Elizen arteko biblia

Badatoz honako hau esango den egunak: "Zorionekoak **agorrak**, haurrik sortu ez duten sabelak eta titirik eman ez duten bularrak". Elizen arteko biblia

Agor egingo zaituzte Jaunak, bai zeuek, bai zuen lur eta abereak, eta antzu zuen behi eta ardiak. Elizen arteko biblia

Herri guztien gainetik bedeinkatuko zaituzte: ez da zuen artean inor **agorrik** izango, ezta antzurik ere zuen abereen artean. Elizen arteko biblia

Ikus dezakezunez, gure hiri hau toki ederrean egina dago; baina ura txarra dugu eta lurraldea **agorra**. Elizen arteko biblia

Pikuondo **agorraren** parabola. Elizen arteko biblia

• **3** agorrila.

Eta **agorreko** esaminekin ez kezkatu. Xabier Mendiguren Elizegi

Santa Krutz maiatzeko, morroiak siesta egiteko; Santa Krutz **agorreko**, siesta uzteko. Pello Zabala

Agor-liñoa deitzen zioten askok, **agorraren** edo irailaren azken bi asteetan ereiten zutelako. Pello Zabala

-Bixar... Barixakua, **agorraren** 22. Txillardegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
agor eta (9); **agor zena** (5); **agorra baitzen** (4); **agorra zela** (3); **agorra zen** (4); **emakume agorra** (3); **eta agor** (5); **eta agorra** (3); **eta teja agor** (4); **teja agor** (4)

---

agora **1** *iz* Grezia klasikoan, plaza publikoa; plaza horretan biltzen zen batzarra.

Hiriaren bi aldetara kai eder bat dago, sarrera estukoa; tenplu eder bat ere badago, Poseidon jainkoari eskainia, eta **agora** bat, non biltzen diren feaziarrak itsas tresnak prestatzeko, itsasgizon trebeak baitira. Juan Kruz Igerabide

Ulises txunditurik zihoan, alde guztietara begira; miretsi zituen kaiak, itsasontzi neurri-neurrian eginak, **agorak**, harresi ikusgarriak. Juan Kruz Igerabide

Ez dute batzarrak egiteko **agorarik**, ez legerik; mendi handietako leizeetan bizi dira, eta bakoitzak beren emazte eta umeei agintzen die. Juan Kruz Igerabide

Telemako megaroitik irten zen, eskuan lantza, alboetan bi zakur, eta **agorarantz** abiatu zen. Juan Kruz Igerabide

Eta zu, Nizias, azken aldia **agoran** aditu zintudanean ez zinen baitezpada Alkibiadaren Ziziliarako espedizioaren alde? Itxaro Borda

Behin antzokia eta **agora** bisitatu ondoren, Bel jainkoaren omenez eraikitako tenpluaren patio itzelaren erdi-erdian zeudela, Zenobiak, besoa eta hatz erakuslea muino baterantz luzatuz, esan zien gailur hartan ageri zen gotorlekuak Qalaat Ibn Maang izena zuela. Josetxo Azkona

Laster bete ziren **agorako** eserlekuak, eta denek harriturik begiratzen zioten Ulises zuhurrari. Juan Kruz Igerabide

Kosmopolisean ala telepolisean bizi gara? zein da pólisaren helburua: bizikidetza? zein da pólisaren indarra, gerra ala bakea? zein dira **agorako** ordezkariak? zeintzuk langileak? Askoren artean

Feaziarrak **agoran** biltzen hasi ziren. Juan Kruz Igerabide

2 (hitz elkartuetan)

Idazleei, kritikariei, irakurleei espresabide **agorak** eskaini behar zaizkie. Ana Urkiza

---

agorafobia *iz* eremu irekiekiko beldur gaixotia.

Beste batzuek buzoarekin segitzen zuten, Goiok esaterako, gero eta burusoilagoa zen Goio, Goio bere buzo barruan sarturik-enbutiturik- **agorafobia** probokatzeko moduko buruko soilunearekin, hestebete zurbil eta ezezagun bat bailitzan. Jon Alonso

---

agorafobiko *izond* agorafobia duena.

Eta arkeologiari jarraitasun-ezaren azterketa lehenestea aurpegiratzen diotenei, historiaren eta denboraren **agorafobiko** horiei guztiei, haustura eta irrazionaltasuna nahasten duten horiei guztiei, nik zera erantzungo diet: [...]. Xabier Arregi

---

agorgarri *izond* agortzen dena.

Beren helburu kontzientea beraiek irautea da gizartearen energia **agorgarriak** kontserbatuz, horren zoriari lotuta baitago beraiena. Iñaki Mendiguren

---

agorkor *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* erraz agortzen dena.

Gero eta handiagoa den kontsumoa sostengaezina da, bereziki energia baliabide **agorkorren** mendean dagoenean. ETC-prentsa

Egun, naturaren kapital **agorkorra** den petrolioa, baliabide berriztagarria den ur minerala baino merkeagoa da; horrek ez dauka zentzurik. ETC-prentsa

Erregai **agorkorren** aurrezpena: aurrezpen hau petroliotik eratorritako produktuen erabilpena berriztagarriak diren biogasoleoekin ordezkatuz joan ahala lortuko da. ETC-entziklopedia

agorpen *iz* agortzea, agor bihurtzea.

Espainiaren menpeko Euskal Herria zatitua mantentzeko duela 25 urte sortutako markoaren **agorpena** ezin argiago erakusten digu gaur eguneko egoera politikoak. Berria - Harian

Gasteizen auto gutxiago egin zituzten, 76.048, ereduaren **agorpena** zela eta. Berria - Ekonomia

Aukeraz mintzo gara, formula batzuen **agorpena** ez baita oraindik beste baten aldeko onespena. Berria - Harian

---

agorraldi **1** *iz* agortea dagoen aldia.

Agortea edo **agorraldia**, ur eskasiaren eta lehorte aldi horren ondorioa izango genuke: alegia, ur falta horrekin, eta ebaporazioak erantsita, ibai, aintzira, urmael, putzu, zingira eta urtegi, ur-maila ttikien eta baxuenetara iritsita aurkitzen direla urte sasoi batzuetan. Pello Zabala

2 irud/hed

Bizitzaren **agorraldi** zekena. Imanol Zurutuza

Liburuek oso harrera ona izan dute, ondo saldu dira, eta ondo saltzen dira, baina jatorrizkoen aldetik **agorraldia** dago. Berria - Kultura

Nire lanean ere gutieneko aurreikuspen batzuk behar direla, eta aurreikuspen horien barnean **agorraldia** ere sartzen dela, urtean behin-bitan, eta bereziki udaldian -agorrilean, ezinbertzez- kazetariaren amesgaizto bilakatzen den berri eza. Aingeru Epaltza

Harrezkero, lan askoko une oparoekin batera **agorraldiak** ere izan ditu lan taldeak. Berria - Kultura

---

agorrarazi, agorraraz(i), agorrarazten *(orobat **agortarazi** g.er.)* du *ad* agortzera behartu.

Zuk sortarazi dituzu iturri eta errekak, zuk **agorrarazi** inoiz lehortu gabeko ibaiak. Elizen arteko biblia

Ibaien iturburuak **agorrarazi** eta argitara ateratzen du ezkutuan zegoena. Elizen arteko biblia

Neuk **agorrarazi** ditut lurra eta mendiak, gari-sail, mahasti eta olibondoak, lurraren emaitza guztia; bai eta gizaki, abere eta zuen eskulan guztiak ere. Elizen arteko biblia

Etxeetako ateak xehekatu zituzten, oheak hautsi, haurrak iratzarri, zaharra inarrosi, behi esnedunak marrumaz eta ardi kankailak marrakaz **agorrarazi**. Itxaro Borda

Ez ote diguten **agorraraziko** esperantza apurra. Hasier Etxeberria

---

agorreria *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* agortzea, agortze bidea.

Eta erregai eta lehengai fosilen **agorreriarengatik**. ETC-prentsa

Baina beldurrak ezin uxatu: eta ideien baratzea ihartzen zaidanean, zer? Esoporen alegiako inurriaren jarrera neure eginda, **agorreri** garaiei aurrea hartuko diet, eta estreinaldian orrialde zuri ikaragarriari buruz egingo dut berba. ETC-prentsa

---

agorrezin ik **agortezin**.

---

agorril *(ETCn **4.104** agerraldi; cf **abuztu** ETCn **35.921**) iz* abuztua.

Lan-gabezia emendatu da **agorrilean** eta itxuren arabera ez da ere ttipitu irailean. Herria

1854an urriko 16an, Mixel Garikoitzek berak proposaturik, Betarramistek erabaki zuten harat joatea. 1856ko **agorrilean** joan ziren lehenak. Xipri Arbelbide

Angeluar gazte hori eritasun hortaz joa zen eta joanden **agorrilean** zendua da. Herria

Osagarriz ez zen soberakinik fleitian eta diosesako bisita batetarik akitua sartu zen, eritu eta 1889an hil **agorrileko** 9an. Xipri Arbelbide

Hiru minutu geroago kanpoan izanen nintzen eta haiek, berriz, **agorrileko** ortziral eguzkitsua deabruari oparitzen segituko zuten. Aingeru Epaltza

Duela bizpahirur urte, **Agorrilako** egun eder batez, Eskualdun andana handi bat Lurdera joana zen beilaz edo erromeriaz. Xipri Arbelbide

Suari **agorrileko** eguzki samina gehitu zitzaion, ehunka hilotz zeutzan tokian, karrika eta etxeen erauzkinetan usteltzera utzirik. Aingeru Epaltza

Udarak eman ditu onenak, / etorri da **Agorrilla**. Pello Zabala

Agorrila aintzina doalarik, arrotzek bihotzeko histura batekin, hartzen dute beren etxeko bidea. Herria

Edergintza erakusketa ere estreinatua zen egun hortan Intxausetako, Urrutigaraiko eta Errekaldeko etxe inguruetan, **Agorrila** guzian ikusgai egon zen erakusketa. Herria

Agorrilaren 12a, ortzeguna: Baigorriko elizan, aratsaldeko 4etarik goiti, organoari bisita Remy Malher-ekin, eta 7etan arrabita eta organo kontzertua, Claire Zarembowitch eta Jesus Martin Moro-rekin. Herria

Agorrilaren 16 an, Mendeala gelan, kantaldia aratseko 8.30 etan. Herria

Agorrilaren 11 an: "Le retour de la Momie". Herria

Louis-Philippe errege da Frantzian 1830eko **agorrilaren** 9az geroz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Erakusketa **agorrilaren** 5tik 15a arte . Herria

1927-ko Andredena Mariz, beraz **agorrilaren** 15ean, beti bezala Donibane Garaziko bestak ziren. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Agorrilaren 13an larunbatarekin: 16.00tan haurrendako animazioak eta zirkoari iniziazioa "Kerozen eta Gazoline" taldearekin. Herria

-Heldu den asteburuan da gure bestarik handiena, **agorrilaren** hamabortza, Andre dena Mariaren eguna. Aurelia Arkotxa

Auten ere, Andredena Maria bezperan, **agorrilak** 14, eginen da Garindainen Euskal Kantarien Biltzarra eta hori hogoita-hamargarren aldikotz. Herria

Hala nola 15 eta 18 urtez petikako putikoak Madiran eskualdean ginituen, **agorril** hastapen huntan, beren hiru entrenatzaileekin sasoina ongi hasteko. Herria

Aitzineko urtetan, **agorril** hastapenean iragaiten zen gure ohizko amarrain besta edo kermeza. Herria

1944ko **agorril** erditsutan, igande arrats batez. Marzel Etxehandi

Halatan, **agorril** hondarrean, Pierraren emazteak hirugarren haur bat munduratu zuen, ganbarako hormak odolez perdukatuz. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agorril erditsutan (4); **agorril hortan** (5); **agorril hunen** (4); **agorril huntan** (7); **agorril ondar** (4); **agorril ondar hortan** (3); **agorril ondarrean** (7); **agorril undarrean** (4); **agorrila ere** (3); **agorrila zen** (3); **agorrilaren lehenean** (3); **agorrileko azken** (10); **agorrileko azken astean** (3); **agorrileko egun** (3); **agorrileko hirugarren** (3); **agorrileko lehen** (6); **beila agorrileko** (3); **beila agorrileko azken** (3); **bestak agorrilaren** (5); **da agorril** (5); **da agorrilaren** (21); **dela agorrilaren** (3); **den agorrilaren** (11); **den agorrilean** (6); **dena agorrilaren** (3); **dira agorrilaren** (6); **dohatsuaren beila agorrileko** (3); **du agorrilaren** (4); **eko agorrilaren** (4); **elizan agorrilaren** (3); **erakusketa agorrilaren** (4); **estrenaldia agorrilaren** (3); **eta agorrila** (6); **eta agorrilaren** (36); **eta agorrilean** (9); **etik agorrilaren** (3); **ezkontza agorrilaren** (12); **ezpeletan agorrilaren** (3); **festibala agorrilaren** (5); **finala agorrilaren** (3); **heldu den agorrilaren** (5); **helduden agorrilaren** (4); **helduden agorrilean** (4); **heriotze agorrilaren** (3); **herriko bestak agorrilaren** (4); **hiltze agorrilaren** (3); **hitzorduak agorrilaren** (3); **ikusgarriak agorrilaren** (4); **iragan agorrilaren** (8); **izanen da agorrilaren** (4); **joan den agorrilaren** (6); **joan den agorrilean** (5); **joanden agorrilean** (6); **ko agorrilaren** (5); **musika festibala agorrilaren** (5); **sortze agorrilaren** (3); **tik agorrilaren** (5); **udako hitzorduak agorrilaren** (3); **udako ikusgarriak agorrilaren** (4); **uztail agorriletan** (9); **uztail eta agorrilean** (3); **uztailean eta agorrilean** (3); **zinema agorrilaren** (11)

---

agorrola *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* urik gabe funtzionatzen zuen ola.

Agorrolak edo haizeolak dira horren adibide. ETC-prentsa

EHn zaila izaten da askotan bereiztea zein den zein, mendian aurkitzen diren **agorrola** zaharren kasuan behintzat. ETC-literatura, saiakera

Haizeolak (**agorrola** eta jentilola izenarekin ere ezagunak) industria aurreko garaietako instalakuntzak ziren, k. a. XI. mendetik k. o. XV. mendera arte 2.000 urtez erabili izan zirenak. ETC-entziklopedia

---

agortarazi ik **agorrarazi**.

---

agortasun *iz* agorra denaren nolakotasuna.

Hau dio Jaunak: "Nik ontzen dut ur hau; aurrerantzean ez du ekarriko heriotzarik, ez **agortasunik"**. Elizen arteko biblia

Ulerpena jaso nahi zuen, genioa zela segurta ziezaioten, ezer baino lehen, eta ondoren bizitzaren zirkulu barrura eraman zezaten, epelera eta patxadara, bere zentzuen jabe egin zezaten berriro, bere **agortasuna** emankor bihurtu. Anton Garikano

Zintzoa bere **agortasunean** emankor. Elizen arteko biblia

---

agorte *(ETCn **14** agerraldi; cf **lehorte 2.584** agerraldi) iz* lehortea.

Agortea edo agorraldia, ur eskasiaren eta lehorte aldi horren ondorioa izango genuke: alegia, ur falta horrekin, eta ebaporazioak erantsita, ibai, aintzira, urmael, putzu, zingira eta urtegi, ur-maila ttikien eta baxuenetara iritsita aurkitzen direla urte sasoi batzuetan. Pello Zabala

Hutsetik hutserakoa izandu da numerologiak ekarri digun **agortea**. Patziku Perurena

Zeru-goiak, brontzezko bihurturik, lurrari dagokion ihintza ematen ez diola ikusteak ez du ez morroiaren bihotza estutuko, nagusiarena baizik; **agortean** eta gosetean eman beharko baitio bizigaia, hezealdian eta onaldian zerbitzatu zuenari. Patxi Ezkiaga

---

agortezin *(orobat **agortezin** g.er.) izond* ezin agortuzka.

Fede horrek izan behar du gure babesa eta gure indarraren iturri **agortezina** azterketaren ordu honetan. Urtzi Urrutikoetxea

Nik ere horixe pentsatu nuen, baina, agi danez, gizakion gaiztakeria ahalmena **agortezina** da, aseezina. Karlos Linazasoro

Oteizaren diskurtsoa **agortezina** da ia. Berria - Kultura

Energia "merke, **agortezin** eta garbia". Berria - Gaiak

Behar duzun denbora guztia egoten ahal zara gurekin eta gure hitzak Atikako putzuak bezain sakon eta **agortezinak** dira. Itxaro Borda

Ospitaleko langileak harrituta gelditu ziren Robinsonen diruak **agortezina** zirudiela ikusita. Lopez de Arana

Mutiritasun eta ausardiazko zurrunbiloa, jakintsua, berezkotasun- eta bihurrikeria-iturri **agortezina**. Oskar Arana

Iruindar idazle honek ere gerren harrobi **agorrezinetik** hartu baitu istorio hau kontatzeko lehengaia; hain zuzen, 1939. urtean girotu du kontakizuna. Berria - Kultura

Beraren adiskide izateak gozamen betea, berarekin jarduteak aberastasun **agorrezina**. Elizen arteko biblia

Semeak bere heriotzaz askapena eta bekatuen barkamena lortu dizkigu, Jainkoaren eskuzabaltasun **agorrezinaren** erakusgarri. Elizen arteko biblia

Ez da komeni Frantzisko goresten gehiegi saiatzea, Jainkoagandik baitator haren gorespena, guztien gorespen, iturburu, ohore **agortezin** den eta betiko argia saritzat ematen duen harengandik. Askoren artean

Florent ordubetean geratzen zen Gavardekin batzuetan, miraz haren kalaka **agorrezina** zela-eta, gona haien guztien artean moldatzeko erakusten zuen adore eta aisetasuna zirela-eta. Karlos Zabala

Han dute bazka-leku segurua, ia **agortezina**. Txema Ramirez de la Piscina

Eta gutarik nork ez ditu miretsi noiz edo noiz lehia poetiko hauek, koblakariak, godaleta eskuan, ardura gau osoan, etorri **agorrezinean** ari direla elkarri gogo-borrokan? Berria - Kultura

Lehengusuak etengabe egiten zuen barre ateraldi **agortezin** haiekin. Pello Lizarralde

Begi zurixkak malko **agortezinen** iturbururantz bildu ditu. Itziar Otegi

Ametsetan ere, kalez kale ibiltzen zen, eta han guztiz dontsua sentitzen zen, kale guzti-guztietan ibil baitzitekeen nekatu gabe, kemen **agorrezinez**. Eskarne Mujika

Agortezineko altxorra, beti aberastasun berriak, beti ustekabekoak, eman ditzakeena. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iturri agortezina** (7)

---

agortu, agor(tu), agortzen **1** da/du *ad* agor bihurtu; iturri, putzu, ibai eta abarren ura ahitu.

Sekula **agortzen** ez den erreka baten ondora. Elizen arteko biblia

Nimrimgo erreka **agortu** egin da, belarra ihartu, larrea zimeldu: hostorik ere ez dago berde. Elizen arteko biblia

Egun batzuen buruan, ordea, **agortu** egin zen erreka, ez baitzuen euririk egin lurraldean. Jose Antonio Mujika

Goxo dela itzalean errairen dit, baina iturria **agortua** dela. Piarres Aintziart

Babiloniako ibaiak hustuko ditut, iturburuak **agortuko**. Elizen arteko biblia

Haien etsipenak muga guztiak gainditu ditu, beren ur erreserbak **agortzen** ari direla eta etorkizun antzua eta idorra dutela ikusita. Berria - Mundua

Petrolio erreserbak **"agortzen** ari dira. Berria - Ekonomia

Gutxienez gasolina **agortu** arte erabili ahal izango dun. Josu Landa

Niloko urak **agortu** egingo dira, ibaia hutsik eta lehor geldituko. Elizen arteko biblia

Polizia-filmak: Udan gaude, urak **agortzen** ari dira, telebixtetan errepikatze garaia. Herria

Tsarinarentzat Rasputin "Jainkoaren gizon santua" zen -Alexis semearen odol-isuriak **agortzeko** gai zela erakutsi zuenetik-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Itsasoko ura zu bazina, **agortzeraino** edango nuke. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bizitzaren azken tanta **agortu** arte. Imanol Unzurrunzaga

Gintonica tragoz **agortu** eta barraren bestaldekoa agurtu zuen. Harkaitz Cano

2 irud/hed

Amari bularreko esne-iturria **agortu** zitzaiolako, eritasun baten ondorez. Joan Mari Irigoien

Diru iturri hori ez zela **agortuko** sinetsiz, bigarren frontoia bat eraiki zuten Cebu hirian, 1967. urtean. Ramuntxo Etxeberri

Hizkuntza-gaitasun handia jaso duenak, gaitasun horiek trebatu ezean, herdoiltzera joko du, eta jarioa **agortuko** zaio. Andoni Egaña

Petrolioaren Institutu Frantziarraren ikerketa baikorrenek diotenez, 2080. urterako petrolioa **agortuta** legoke. Berria - Gaiak

Halako abenturetan xahutu eta **agortu** ditut ene urteak. Juan Garzia

Berri txar horiek guztiek ez zuten bizkitartean **agortzen** Ameriketara zihoazen joaileen uholdea. Piarres Xarriton

Zaila baita arrunt, mendekuaren isuri gordea erabat **agortuz**, izpiritu biziko inork bere zinezko jardunean deus burutzea. Patziku Perurena

Tristea da, baina Van Daani diru guztia **agortu** zaio. Josu Zabaleta

Joan den otsailean bozkatua izan den bide-zaingoaren buxeta **agortua** baita lan haundienak helduden urtean eginak izanen dira. Herria

Frantzisko **agortu** ezineko hitz-jarioz saiatzen da izendaezina den "Goi-goiko, ahalguztidun, Jaun ona" (AEgKt 1) abesten eta ospatzen. Askoren artean

Ugaztunak, ugatzetik hazten du umea, eta amaren esnea **agortu** ahalean, jaioko eta indartuko zaizkio hortzak umeari. Patziku Perurena

Malkoak **agortu** zitzaizkionean, berriz, halaxe mintzatu zitzaidan, ezin goibelago: [...]. Joan Mari Irigoien

Ogi-irin-katilua ez da hustuko, ez eta oliontzia **agortuko** ere, Jaunak lur gainera euria egin dezan arte. Elizen arteko biblia

Agortu ardoa, ahitu olioa. Elizen arteko biblia

Hark Pippinen pazientziaren azken tanta **agortu** zuen. Agustin Otsoa

Gripearen aurkako txertoa **agortu** da botika askotan. Berria - Harian

Meatzari izandako herri bat zen Arralde berri hau, mea aspaldi **agortu** bazen ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Horregatik gustatzen zaie horrenbeste zahartxoei, bizitza ia **agortu** zaienei, hitz egitea, kontatzea, esatea. Lourdes Oñederra

Poztu egin nintzen ataka estu hartan ere oraindik ironia erreserba **agortu** ez zitzaidalako. Harkaitz Cano

Beste langai guztiak ahigarriak dira, **agor** daitezke edo gera daitezke erabiligarritasunik gabe. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Aspaldi **agortu** zen inork zapaldu gabeko eremu berriak deskubritzeko ametsa, baina arteari esploratzaile izatea dagokio ekintza artistikoaren porturik eta itsasorik gabeko ontzian. Anjel Lertxundi

Arratsalde zientifikoetarik landako gaualdiak, ez dakit nongo mahabarrataren mantrak errepikatuz higatzen genituen, zangoak, besoak eta gaineratikoak zintzilik, iturriak eta indar ezezkorrak **agortu** arte. Itxaro Borda

Lauko Finala ikusteko sarrerak **agortu** dira. Berria - Kirola

Teknologia oso zaharkituak erabiltzen ditu, ordea, oso kutsatzaileak eta baliabide fisiko ugari **agortzen** dituenak. Iñaki Heras

Su-etena amaitutzat eman zuen ETAk 1999ko azaroan, abertzaleen arteko akordio bidea **agortutzat** emanez. Berria - Harian

Gorri daude landak, dolu dagi lurrak; galdu da laborea, Jaunaren onginahia ez dela amaitu, haren errukia ez dela **agortu**. Elizen arteko biblia

Agortu zaigu bihotzean poza, gure dantza dolu bihurtu da. Elizen arteko biblia

Maitasun hori ahitzen joan da, **agortzen**, etxebizitza ziztrin honetan pasatu ditudan hilabete hauetan guztietan zehar. Iban Zaldua

Ez naiz honetan luzatuko, ez bainituzke zure pazientzia eta pairua **agortu** nahi. Joan Mari Irigoien

Pentsalari distiratsua da Kundera, axalekoa baina distiratsua, kontraesankorra dirudien arren: ez du arazoen muina argitzen eta **agortzen**, ez da hori haren asmoa ere, baina gai bat hartuta badaki ikuspegi original bat hautatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Pasatu ziren urteak, eta **agortu** zen itxaropena. Iñaki Iñurrieta

Jakintza, ordea, ez; ez da **agortzen** eta beti izaten da erabilgarria. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Diezek ziurtatu zuen oraingo negoziazio kolektiboaren eredua **"agortuta"** dagoela. Berria - Ekonomia

Bere sormena **agortzen** ari zaiola sumatzen duenean egiaz erotzen da. Josu Zabaleta

Horri esker, Gizon Primordial bihurtzen da, Naturaren sintesi, katabasia egin ondoren, hots, izatearen maila beherekoenetara jaitsi ondoren; posibilitate guztiak **agortu** eta errealitate desberdin batera birjaioz. Iñaki Iñurrieta

Kredituaren kontura ari da bizitzen; egunen batean **agortu** egingo zaio kreditua. Oskar Arana

Aukera ezberdinak baizik ez naiz aztertzen ari, jakinik, hala ere, ez dudala gertagarri guztien zerrenda **agortu**. Aingeru Epaltza

Euskal Herrian indarrean dauden hizkuntza-politikarako ereduak **"agortuta"** daude eta ez dute euskalduntzeko balio. Berria - Euskal Herria

Ez al da irrigarri, inguruko gauzen ederra bizitzeko eta sentitzeko giza gogoak dituen aukera zoragarri guziak abstrazio hutseraino **agortu** izana? Patziku Perurena

Enarak etorri ziren egunean **agortu** zitzaion arnasa emazteari. Imanol Zurutuza

Winston erosi duzu, Eñauti omenaldi txiki bat egitearren eta, betiko moduan, filtroraino **agortu** duzu. Sonia Gonzalez

Bertsoa, ordea, ez da testuan **agortzen**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Axular ezin **agortuzko** maisuak emango digu erantzuna, goikoak idatzi eta gero harrimenez irakurri dudana: [...]. Iñaki Segurola

Errealitate horien iraupen luze, ezin **agortuzkoa**, beren patura etengabe egokitua, beste errealitate kolektibo guztien gainetik. Koro Navarro

Lehenengo argitaraldia 2.000 alekoa izan zen eta berehala **agortu** zen. Jon Muñoz

1997an plazaratutako lehen argitalpena **agorturik** da. Herria

Zigortzeko betebeharra (1900. Bilduma honetako mintzaldi guztiak Dreyfus aferaren ingurukoak dira. **Agortua**). Monika Etxebarria

Ultimatuma **agortuta**, bahitzailea den Irakeko Armada Islamikoak ez du gatibuen informazio berririk eman. Berria - Mundua

Apirilean Bin Ladenek herrialde musulmanetatik ateratzeko emaniko epea **agortu** dela diote. Berria - Mundua

Denbora **agortzen** ari zait eta ez dut ia ezer idatzi. Eider Rodriguez

Pilak **agortu** ziren arte. Jokin Muñoz

Eguzki panelak zikin-zikin eginda izan dituzte behin baino gehiagotan hauts ekaitz bortitzen ondorioz, eta bateriak **agortuta**. Berria - Gaiak

Ruper Ordorikak etzi Periferiak topaketen barruan Bilboko Kafe Antzokian egingo duen kontzertu akustikorako sarrerak agortuta daude, eta ostiraleko emanaldirakoak ere **agortzear**. Berria - Kultura

3 (era burutua izenondo gisa)

Suteen ondoko lur **agortu** eta pobretuan. Pello Zabala

Lur **agortuak**, behinola espezie guztiak sortu eta piztien gorputz eskergez erditu zenak, animalia txikiak ozta-ozta sortzen ditu. Xabier Amuriza

Ola, errota, harrobi eta meategi zaharrak; zubi hautsiak; iturri **agortuak**; argindar-kablerik gabeko alferrikako zutoinak. Juan Luis Zabala

Biziberri dezagun, bada, iturri **agortuarena**. Joxerra Garzia

Hura geldirik zegoen, begira, aurpegi ia osorik **agortuan** begiak zabal-zabalik zituela. Josu Zabaleta

Gau hartan, lotara joan aurretik, egongelako altzari astuna zabaldu eta etiketan "Napoleon" zekarren botila ia **agortu** bat hartu nuen. Alberto Ladron Arana

Hain zituzten Luizaren berri izateko esperantzak **agortuak**, non ezustekoren batek soilik, patuaren kolpe sendoak seguru, ekarriko zien, ekartzekotan, argi pixka bat haien arimen iluntasunera. Felipe Juaristi

4 antzutu.

Agor zena, haur askoz erdi da; askoren ama, berriz, **agortu**. Elizen arteko biblia

5 ***ezin agortuzko***

Denak goxatzen gaituzun **ezin agortuzko** iturria. Herria

Axular **ezin agortuzko** maisuak emango digu erantzuna, goikoak idatzi eta gero harrimenez irakurri dudana: çahartuz guero, utci behar da bicitcea eta bicitceco gogoa; heriotcearequin behar da iharduqui. Iñaki Segurola

Izan ere, eskualde-eremu bakoitzaren baitako bilakaera ekonomiko eta politikoen homogeneotasunak -Latino Amerika, Saharaz hegoaldeko Afrika, arabiar mundua, indiar mundua, txinatar mundua-, ezin hobeto argitzen du Braudelek aipatzen zuen zibilizazioen iraupen hura, "errealitate horien iraupen luze, **ezin agortuzkoa**, beren patura etengabe egokitua, beste errealitate kolektibo guztien gainetik" 1969, 303 or.. Koro Navarro

Maila horretan ere ematen baitira iritziak eta datuak, betiere kontuan izanik alor hori **ezin agortuzkoa** dela eta hor sakontzen hasteak askoz ere leku gehiago eskatuko liekeela lana idatzi dutenei. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Urepeleko artzainaren **ezin agortuzko** mintzoa. Berria - Kultura

Zinema mutuak zenbaitetan gehiegi ere erabili zituen muntaketa-efektu hipertrofikoak dokumentu errealitatearen desitxuraketa bortitza ziren, baina **ezin agortuzko** adierazgarritasun-iturburua izan ziren bolada batean. Josu Zabaleta

Denbora luzez, egiazkotzat hartu da hizkuntzak **ezin agortuzko** iturburua zirela haiek zerabiltzaten herriei eta herri horien historiaurreari buruzko dokumentuak lortu ahal

izateko. Isabel Arrigain

Baina Reb Zekelek ez zuen hiltzeko presarik; ateraldi eta bertso isuri **ezin agortuzkoaz** alaitzen zituen oraindik ere ezkontzak, gazte denboretan bezalaxe. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agortu ahala (3); **agortu arte** (17); **agortu baino** (5); **agortu baino lehen** (3); **agortu baita** (3); **agortu da** (4); **agortu dela** (3); **agortu dira** (22); **agortu ditu** (3); **agortu du** (5); **agortu egin** (44); **agortu egin da** (5); **agortu egin dela** (6); **agortu egin dira** (7); **agortu egin zen** (8); **agortu egin ziren** (4); **agortu egingo** (8); **agortu egiten** (6); **agortu ere** (3); **agortu eta** (21); **agortu eta gero** (4); **agortu ez** (5); **agortu gabe** (5); **agortu nahi** (5); **agortu nahi ditu** (3); **agortu ondoren** (5); **agortu zaio** (5); **agortu zelako** (3); **agortu zen** (13); **agortu zenean** (3); **agortu ziren** (24); **agortu zitzaion** (3); **agortu zitzaizkion** (4); **agortua dago** (5); **agortua dagoela** (8); **agortua dela** (3); **agortuak daude** (3); **agortuak izan** (4); **agortzea dela** (3); **agortzen ari** (48); **agortzen ari da** (6); **agortzen ari dira** (6); **agortzen ari direla** (5); **agortzen ari zaio** (3); **agortzen da** (3); **agortzen denean** (4); **agortzen direnean** (3); **agortzen du** (3); **agortzen eta** (3); **agortzen ez** (7); **agortzen ez den** (4); **agortzen hasi** (3); **agortzen hasia** (3); **agortzen zen** (3); **arauzko denbora agortu** (3); **arnasa agortu** (3); **aspaldi agortu** (8); **baliabideak agortu** (3); **batean agortu** (5); **berehala agortu** (4); **berehala agortu zen** (3); **bizitza agortzen** (4); **bizitza agortzen ari** (4); **da agortzen** (5); **dela agortu** (3); **denbora agortu** (7); **denbora agortzeko** (3) agortzen ahal (3); **denbora agortzen** (5); **denbora agortzen ari** (5); **dirua agortu** (4); **egunean agortu** (3); **epea agortu** (4); **epea agortzen** (5); **erabat agortu** (4); **erabat agortzen** (3); **ere agortu** (3); **erreserbak agortzen** (5); **erreserbak agortzen ari** (5); **estatutua agortu** (3); **eta agortu** (11); **eta agortzen** (4); **ez da agortzen** (4); **ez dela agortu** (3); **gaia agortu** (3); **gobernua agortua** (3); **gobernua agortua dagoela** (3); **guztia agortu** (3); **guztiak agortu** (21); **guztiak agortu dira** (5); **guztiak agortu ziren** (3); **guztiak agortzea** (3); **guztiak agortzen** (7); **horretan agortzen** (3); **ia agortu** (5); **inoiz agortzen** (4); **kontzerturako sarrerak agortu** (6); **pazientzia agortu** (11); **pazientzia agortu du** (3); **pazientzia agortzen** (3); **sarrera guztiak agortu** (9); **sarrerak agortu** (16); **sarrerak agortu dira** (8); **sarrerak agortu egin** (3); **sarrerak agortu ziren** (3)

---

agortuxe *izond* agortu xamarra.

Liburu horrek arrakasta pollita ukana du eta oraintxe atera dute funtsean bigarren argitalpen bat, lehena **agortuxea** izanez. Herria

Diren eta ez diren loteria eta diru-zozketa klase denetan jokatu (bankuko kontuak barne) eta pantallari begira egon: horixe egiten du gaur biziaren urak **agortuxeak** dituen pertsonak. Iñaki Segurola

---

agortzaile *izond* agortzen duena.

Lilura faltsua: gauzen hirapenaz oso ezaguera eskasa daukagu; aurkitzen direneko ingurune modalaren ezagutza **agortzaileak** neurri handian gainditzen ditu horien gaitasunak. Piarres Xarriton

Joxe eruditoa, nere errespeto guziarekin, lehendik pentsatutako guziaren nahasberritzaile edo dibulgatzaile (euskal nazisozialismora ekartzeko **agortzaile**) beldurti bat besterik ez da, eta gaurgero ezin da apaiz besterik izan. Patziku Perurena

---

agortze **1** *iz* agor bihurtzea; iturri, putzu, ibai eta abarren ura ahitzea.

Estatu Batuetan interes-tasa errealek gora egin zutelarik, bestalde, arazo berri bat sortu zitzaien beste herrialde industrializatuetako diru-politikei, erreakzionatu beharra baitzuten beren finantza-merkatuen **agortze** hartan. Koro Navarro

Huysmans-en liburuak errealismoaren **agortze** eta nekearen testigantza nabarmena eskaini zuen. Juan Garzia

Terrorismoaren justifikatzea atzerapen morala dela irudi zait, humanitatearen aurkako atentatu bat, berriz diot, pentsamenduaren **agortze** bat, errealitatearen isuria ukatzeko moldea. Itxaro Borda

Hau da, horien **agortze** erritmoa alternatiba berriztagarrien sortze erritmora mugatu behar da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Baliabide berriztaezinen kasuan ez du garrantzi handirik, jakina, zeren eta horien erabilerak jaitsarazi egiten baitu, betiko, **agortze** bidean dauden baliabide horien izakin maila; hauxe gertatzen da, besteak beste, erregai fosilekin, petrolioarekin alegia. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Teknikaren bidez aurkituko baita naturak eskaintzen dizkigun baliabideen hondatze edo **agortzea** ordezkatzeko modua. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Baliabide horien **agortzeak** eta berriztaezinen ustiapenak eragindako kutsadurak arazo kritikoagoak zaizkio gizakiari, berriztaezinak agortzetik hurbil edo urrun samar ote dauden kontua baino. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

"Emandako autonomiaren" **agortzea** eta indarkeria politikoaren amaiera izango dira ziklo bukaeraren ezaugarriak, eta euskal erabaki subjektuaren "auto-eratzea" izango da ziklo berriaren oinarria. Berria - Euskal Herria

Esan daiteke despalatalizazioaren **agortzea** onesten duela *-ill-* grafiak. Lourdes Oñederra

2 *baliabideen agortze* *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi)*

Hazkundeak herrialdeko **baliabideen agortzea** ekar dezakeela esan du. ETC-prentsa

Xedeetan natura, **baliabideen agortzea** eta bizi-kalitatea mantentzea kontuan hartzeko eskatu zuen. ETC-prentsa

Espainiako Tierra obrak, berriz, **baliabideen agortzea** irudikatzen du. ETC-prentsa

Energia kontsumoaz hitz egitea klima aldaketaz, hondakinez eta kutsaduraz jardutea da; baina batez ere **baliabideen agortzeaz**, inbertsioen beharraz eta bizi-kalitateaz hausnartzea behartzen gaitu. ETC-prentsa

Eta hiru, giza ongizatearen berme diren bestelako **baliabideen agortze** hazkorra (ura, basoak, bioaniztasuna, eta abar). ETC-prentsa

Valladolideko ikertaldeak dioen bezala, bi horiek baitira xahutzaileenak eta, beraz, problematikoenak **baliabideen agortzearen** ikuspegitik (nagusiki energia). ETC-prentsa

Ez da erraza herritarrei ulertaraztea gaurko krisi ekonomikoaren oinarrian **baliabideen agortzea** eta ekosistemaren aldaketaren kosteak daudela. ETC-prentsa

1970eko hamarkada beldurrak eta natur **baliabideen agortzeak** markatu badute, 1980koaren erdiaz geroztik, biosferaren arazketa gaitasunaren mugen kontzientzia hartzea nagusitu da. ETC-literatura, saiakera

Horien artean, aipatzekoak dira geldiezina den gorakada demografikoa, garapen-bidean dauden zenbait nazioren pobrezia gorria, ingurugiroaren hondatzea edo natura-**baliabideen agortzea**. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

agortzear *adlag* agortzeko zorian.

Gure egunak amaitzear dira, gure urteak **agortzear**. Agustin Otsoa

10.200 lagun baino gehiagok eman dute izena jada, eta dortsal zuriak eta berdeak **agortzear** dira. Berria - Kirola

Gaur egun Gipuzkoan dauden zabortegien erabilgarritasun epeak **agortzear** daude. Berria - Euskal Herria

Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* nobelako lehen edizioko 10.000 aleak **agortzear** daudela eta, liburuaren bigarren edizioa inprimategian dago jadanik. Berria - Kultura

Ohiko oztopoei lantokiak duen lan kargaren falta gehitu zaio, egiten duen hegazkin nagusiaren eskaerak **agortzear** baitaude. Berria - Ekonomia

---

agot *(orobat **agota** eta **agote**)* **1** *iz* Nafarroa Garaiko iparraldean bizi zen jatorri ezezaguneko arraza bateko kidea.

-Jendeetan den ederrena omen da **agota**: bilo hori, larru zuri eta begi nabarra. Anjel Lertxundi

Honek noski, **agotak** dakarzki gogora, endemas Baztan aldekotzat joak, eta maiz jitoekin nahastuak. Patziku Perurena

Nor ziren **agotak**? Hori ez da nihun hain garbi ageri, historialarien artean ere badira hortaz ikusmolde desberdinak. Herria

Batzu buhamiak edo erdi-buhamiak, ahal bezala plantatzen zirenak hor nunbait, Euskaraz **agotak** deitu direnak eta geroxago kaxkarotak, horietarik parrasta bat Espainia barnetik etorria. Herria

Eta, arrazoin bati bertze bat darraiola, zergatik arbuiatu behar ditugu eta gutiagotzat hartu Urbiaindik ez hain urrun ditugun **agotak**, edo juduak eta mahometarrak... edo zientzilariak? Joan Mari Irigoien

Bidea itxi digu, ordea: aparta gaitzatela, ez luketela **agoten** kastarekin elkartu behar, salatariak aholku hori eman die nire gurasoei. Anjel Lertxundi

Agoten atetik sartu naiz, badakizu huraxe dela azokara heltzeko biderik laburrena. Anjel Lertxundi

Gogoratu zitzautan honaratekoan, ene herrian berean, **agoten** auzotik pasatu nintzala, ur hegian, zubiz bertzalderdian... jauregia bezala, funtsean..., baina jauregitik deskart. Michel Oronoz

Juxtu orduantxe, XVI. mende aldera, endemas judio, jito, **agote eta** gisakoen paperezko hidalgiak eta itxurazko nobleziak gailendu ahalean, hasiko ziren herri (edo hobeki herritar) handiuste batzuk beste batzuei petxero deitzen, bereizkeriaz edo erdeinuz. Patziku Perurena

Ez al zitzaien erraiten ari ezen publikano eta puten listakoak izan zitezkeela, halaber, indiar gorri on guztiak, beltz on guztiak, giristino on guztiak, **agot** on guztiak, judu on guztiak, musulman on guztiak, zientzilari on guztiak, eta pertsona on guztiak, ororen buruan? Joan Mari Irigoien

2 (izenondo gisa)

Artzain **agotaren** bi belarrien desberdintasunak soilik bidera zezakean istorio gogoangarri bat. Anjel Lertxundi

Petiri, irule **agot** baten semea, gaztelura joan da liho bila, Urrutiko andre gazteak eskatu baitio haren amari jaunarentzako atorra egiteko. Martin Anso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
agota eta (3); **agoteak eta** (3); **agoteak ez** (5); **agoteak zirela** (3); **agoteen fenomenoa** (4); **agoteen historia** (3)

---

agota ik **agot**.

---

agote ik **agot**.

---

agotz ik **ahotz**[1].

---

agrabante *iz* astungarria.

Izan ere, beste sistema batzuk zeuden hori sartzeko: adibidez, tipo orokor bat eginez eta **agrabante** modura sartuz. Berria - Euskal Herria

---

agrabio *(corpusean ez dago; ETCn 22 agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **irain** eta **laido** agertzen dira)* **1** *iz* desohoratzea; norbaiten interesei edo eskubideei egindako kaltea.

Beste herrialde gehienetan ez dira iritsi adibidez hemengo hedabideetan iritsi diren konparaketazko **agrabio** mailara langile publiko-administratibo eta gizarte-enpresetako edo pribatuetako langileen artean. ETC-literatura, saiakera

Gehiago dirudi minberatasunetik egindako kopiaketa oker bat, urtetako "**agrabio**" sabindarren eraginpean egina. ETC-literatura, saiakera

Baina hainbeste urteko **agrabioek** ezustekoa ekarri dute. ETC-prentsa

Esaterako, finkotasuna galdu duten irakasleekiko **agrabioaz** dihardut, kasu desberdinak izan arren, ez-euskaltzaleek heldulekua baitute. ETC-prentsa

Ederki aletu nuen **agrabio** zahar eta berriagoen zerrenda. ETC-prentsa

Badago begi-bistako **agrabio** bat biktima hauekiko, biktimen alde honek errekonozimendua oso gutxi aurreratu dela hautematen du, erreparazioan batere ez. ETC-prentsa

Gorrotoa, beldurra eta **agrabioak** gaindi ditzagun, prozesuak gauza asko behar du: presoen hurbilketa eta indar politikoen arteko normalizazioa, betiere, estrategia frentista saihestuz. ETC-prentsa

Prozesu independentista bat hemen egitea askoz zailagoa izango da Katalunian baino: batetik, azken hamarkadetan izan dugun historiagatik, baina, bestetik, alderdien eta mugimendu sozialen ardura da jendeak interpretazioak aldatzea eta **agrabioak agrabio** moduan sentitzen hastea. ETC-prentsa

Hirugarren faktore esanguratsua ere izan dute, Espainiako Estatuaren jarrera, haren **agrabioa**. ETC-prentsa

Oinarri sakonak zituzten arazoak eta disfuntzioak azaleratu ziren egun haietan, eta matxinoek, "**agrabio**" horiek guztiak bildu eta egoeraren erruduntzat jotzen zituzten foru-agintarien aurka jotzeko kemena erakutsi zuten. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***agrabio konparatibo***

Gainera, zentzugabeko arau hau soilik espezialitate batzuetan aplikatzen da, izugarrizko **agrabio konparatiboa** sortuz. ETC-prentsa

Azkenik, **agrabio konparatibo** sortzailea da gure ustez, nekazaritza turismo ostatuak dituztenekin alderatuz, Aralarrek oraingoz duen eskaera turistikoa nahiko ondo asetzen delako. ETC-prentsa

Beste biktimekiko **agrabio konparatiboak**, ponentziak iragarri duen diru kopuruarekin hartzen du dimentsiorik lotsagarriena: 180.000 ? guztira. ETC-prentsa

Agrabio konparatibo iraingarriaren eragile. ETC-prentsa

---

agradagarri *izond* agradatzen duena. ik **agrados**; **gustagarri**.

Emmaren lekukoa, aldiz, haren erakasle lagun bat zen, Bénédicte, neska pollit **agradagarria**. Daniel Landart

---

agradamendu *iz* oniritzia.

Ez naiz erantzunik igurikatzera ausartzen; amodioak lehiaz izkiriatuko zukeen, adiskidantzak plazerrez, eta urrikiak berak ere **agradamenduz**: baina urrikia, adiskidantza eta amodioa berdin dira arrotz zure bihotzarentzat. Jon Muñoz

---

agradatu, agrada(tu), agradatzen da/du *ad ipar* atsegin hartu; agradagarria gertatu.

Bat besteaz **agradatu** ginen segidan. Janbattitt Dirassar

Ez zen maiz emazte batez **agradatu**; behar orduan, bere gutizia asetzen zituen eta, ondotik, ahanzten zituen. Elena Touyarou

Haserre nintzen haatik, eta nehori ezin mendeka, zendako neska batez **agradatua** nintzen aldi guziz, nonbaiteko bitxikeria, neska hura behar zen desagertu! Janbattitt Dirassar

Quebec hirian, Trois Pistoles-etan eta Montreal-en eskainiko dituzte kantaldi, musikaldi, ipuinaldi, horiek oro giro onean, Irulegiko arno goxoz eta gaineratikoz **agradaturik**. Herria

Iduri hau egokitzen zaio, nolabait ere, munduko erlijio guzietan onartzen ohi zen aitzineko ideia hari: gure sakrifizioez zerua **agradatzen** zelakoa". Patziku Perurena

Ez nintzen sekula top-model moldean itxuratu, baina itsusia nintzela entzutea ez zitzaidan **agradatzen**. Itxaro Borda

Edo lekuaz biziki **agradatu** da edo hemengo gizon eta emaztek, arduradun edo hautetsien erranek **agradatu** dute pentsatuz "badituzte idea onak ere". Herria

Biek aipamen lehenak dituzte hegoaldeko kasetetan eta bereziki Gonzalezek **agradatu** gaitu telebixtan. Herria

Zinez goxoa ere Axafla-Baitanegin dugun bazkari guziz ona, Fermin Mihuraeta Emile Larre-ren bertsuek **agradaturik** ! Herria

Sarri, aroa edertzearekin, gure eskualde goxorat, jende frango etorriko da, eta lekuaz **agradaturik** , beren bihotzean, orroitzapen samurra daramate, iragan egun baketsuez. Herria

---

agrados *izond ipar* agradatzen duena.

Bide erraza eta **agradosa** . Piarres Aintziart

Aterperako bidean, neska zerbitzariaren aurpegi **agradosa** , gauaren bakardade ameslarian, artoski, kasik kartsuki, irudimenaz marratzen dut. Piarres Aintziart

Laket zait, bidean, herrien izenak ahapeka errepikatzea, soinu **agradosak** neuk nihauri oparituz. Piarres Aintziart

---

agradoski nola *adlag* era agradagarrian.

Angeluk laster eskuratuko du hirugarren @ saria, bere Web gunearen berritzen eta **agradoski** ilustratzen erakusten duen artarentzat. Herria

---

agrafia **1** *iz* idazteko ezintasuna, burmuineko lesio batek eragina.

Afasiako nahiz **agrafiako** kasu guztietan, lesionatua dagoena, gutxiago da honako edo halako hotsak esateko edota ikur batzuk edo beste batzuk marrazteko ahalmena, zernahi tresnaren bidez mintzaira erregular baten ikurrak gogorarazteko ahalmena baino. Isabel Arrigain

2 ez idaztea.

Literaturaz arduratzen denean ahozkotasunaren bidea hartzen du ezinbestean, tradiziorik ezean alegia; baina orduan ere bere **agrafiak** -idazketa ezak- ematen dion lotsagatik, ez egiazko zaletasun edota barne-nahiagatik. Bernardo Atxaga

Agrafiaren akusazioak alde on bat du: akusatzailearen koordenatu ideologikoak nabarmentzen dituela. Bernardo Atxaga

---

agrafo *izond* idazten ez duena.

Euskaldun jendea, eskolatik pasatutakoa, ez da sekula **agrafoa** izan, eta baliatu, "erabil-balioa" eskaintzen zioten hizkuntzak baliatu ditu aldiro: elizan euskara, gainerako ia esparru guztietan erromantzeren bat -halaxe Larramendik, esate baterako-. Bernardo Atxaga

Baina **agrafoa** zara azken batean. Iñaki Iñurrieta

Itxia eta atzerakoia da, primitiboa, probintzianoa, **agrafoa** , karlista edo nazionalista, arrazista, terrorista askotan. Patziku Perurena

Euskalduna **agrafotzat** salatzen duenak "izaera" kontuetara lerratzen du auzia, hots, berezkotasunera edo giza naturara; ez zirkunstantzietara, hots, historiara. Bernardo Atxaga

Ez baitut uste iraulera polit hori euskal hiztun **agrafo** jostariak asmatu ondoren Orixek bereganatua duenik. Patziku Perurena

Elkarri laineza emateagatik edo, beste **agrafo** inozente horiek ez bezalako gradua badugula erakusteagatik edo. Patziku Perurena

Batere hizkuntz altxorrik eta senik baduen hiztunak, haurrak plastilina bezalaxe biguntzen ditu bere hizketara behar dituen hitz eta esanera guziak, egungoak orain dela bi mila urtekoekin nahastuz, edo ikuilukoak bulegokoekin, fakultatekoak **agrafoenekin** , mendikoak juzkadukoekin, elizakoak putetxekoekin, edo alderantziz, beti ere oharkabe eta dotore txirikordatuz. Patziku Perurena

---

agramondar *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **agaramontar** agertzen da) izond/izlag/iz* Agramonteko jauna buruzagitzat zuen fakziokoa; fakzio horretako pertsona.

Zaldun **agramondarrak** ez du deus arriskutsurik nabarmentzen jauregi inguruan, jauregi aurreko pagadian, erreka ondoko sasietan. Anjel Lertxundi

Bere erranetarat zituèn hirurogei bat soldadu **agramondarrak** alferrik sakrifikatzerat utzi gabe. Joan Mari Irigoien

Otsoa hau, halabeharrak bide-lapur (edo gerrillari?) bihurtua, ihesi zebilen kapitain **agramondar** bat zen. Martin Anso

Aita Martin-i gertatu zitzaion bere askazi **agramondarren** hondamendia ikustea eta gero Karlos enperadorearen itzalean kokatzea. Piarres Xarriton

Frantzian egon zelarik, bestalde, Albiko Klaratar seroren komentuan aterpetu handiki **agramondarrekin** harreman hertsiak izan zituen Irakasle Nafarrak. Piarres Xarriton

Gogoratu zitzaizun, ene bizimoldea kontutan hartuz, eta begiratuz, zu ene ama izatea, ez merezi nuelakotz eta zu zeu behin baizik ez zintudalarik ikusi, Tolosan gaindi iragan zinelarik gure **agramondar** andereen lurreko paradisu hartan. Piarres Xarriton

Ofizio Sainduak deliberatuaren arabera, osabak hilabete baten buruan alde egin behar zuen Urbiaindik Granadako Alpujarretarat, norat bertze nafar **agramondar** batzuk ere desterratuak izan baitziren, Aragoiko Fernando faltsuaren manuz. Joan Mari Irigoien

Ikasleei adierazi zienean nola Fernando Katolikoak bereganatu zuen Nafarroa, nafar onak -beaumondarrak- lagun zituela, eta nafar gaiztoak - **agramondarrak** - etsai. Joan Mari Irigoien

Nafarroako erregeen itzalean zituzten beren egiteko politiko eta militarrak, erreinuko mariskal eta **agramondar** aitzindari bezala. Piarres Xarriton

Baita Esteban Etxegoienek Urbiaingo gazteluan eginak ere, nahiz eta honen bekatua bikoitza izan zen, zeren **agramondarra** ez ezik luthertarra ere izan baitzen, eta bere burua hil baitzuen ezin koldarkiago. Joan Mari Irigoien

-Beraz, orain badakik ezen gure arbasoak **agramondarrak** zirela, Albako dukearen eta Leringo kondearen aurka borrokatu zirenak. Joan Mari Irigoien

Hala kontatzen zizkidan, zetozkion bezala, mila historia jakingarri, protestantei buruzkoak edo **agramondar** eta beaumondarrei buruzkoak Joan Mari Irigoien

---

agramontes *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **agaramontar** agertzen da) iz* agramondarra. ik **agaramontar**.

Aspaldidanik gure erresuman bi leinu badituk bi zatitan ezarri gituztenak, hegoaldean eta berdin iparraldean, horiek dituk Behamontesak eta **Agramontesak** . Michel Oronoz

Agramontes bat? Michel Oronoz

---

agrario *izond* nekazaritzari edo laborantzari dagokiona.

Zizeronek zioen lege **agrarioak** kaltegarriak zirela, hiria bakoitzak bere ondasunak kontserba zitzan egina zelako. Iñaki Iñurrieta

---

agregakin *(corpusean ez dago; ETCn **347** agerraldi) iz* eraikuntzan, beste batzuekin batera osotasun bat eratzen duen gauza. ik **agregatu 3**.

Beharra ere bada, uhartean ez dagoelako **agregakin** mehea ematen duen harrobirik, eta, beraz, eraikuntzako enpresak itsas harea bilatu beharrean daude. ETC-prentsa

Euskal Herriko zenbait herritan harrobi zaharrak irekitzeko saiakera atzeman da; harrobi kare harrizkoak, lan erraldoientzako **agregakinak** sortzeko egokiak. ETC-prentsa

Fundazioak azaldu duenez, harrobiko hautsek eta **agregakinek** Baztango abeltzainen bazkalekurik garrantzitsuenetako batzuk kutsa ditzakete, eta bertako eredu sozioekonomikoari eragin. ETC-prentsa

Kontsumitzaileok eta zergadunok ere ordainduak izanen ditugu hormigoiaren eta **agregakinaren** gainprezioa kartelak iraun duen denboran egindako eraikuntza publikoetan. ETC-prentsa

Geruza asfaltikoetan ez da **agregakin** moduan erabiltzen, ez baitu itsaskortasun onik betunarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrekin lortu nahi da kostaldera gero eta **agregakin** gutxiago iristeagatik sortu den egoera larria arintzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hormigoi horren osagaiak porlan zementua, **agregakin** xehe bat (harea), **agregakin** larri bat (legarra) eta ura dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Agregakin naturala meagintza ustiapenetik lortu dena eta soilik prozesu mekanikoak jasan dituena da. ETC-entziklopedia

Hormigoia edo betoia **agregakin** eta konglomeratzaile hidraulikoz osatutako nahasketa da, eraikuntzan erabiltzen dena. ETC-entziklopedia

Eraikuntzan partikulen tamaina 5 mm baino handiagoa duen materialari deitu ohi zaio legarra eta **agregakin** bezala erabili ohi da. ETC-entziklopedia

---

agregatu, agrega(tu), agregatzen

1 du *ad* gehitu, erantsi.

Agerpenaren anizkunkiaren sintesia mozten bada, orduan hau agerpen askoren **agregatu** bat da, eta ez da benetan agerpena *quantum* gisa. Ibon Uribarri

Espazioari dagokionez, bertan ez dago bere baitan aurrerakorraren eta itzulkorraren arteko ezberdintasunik, zeren berak **agregatu** bat osatzen baitu. Ibon Uribarri

Hainbestez, ideia horrek adimenaren ezagutzaren batasun osoa postulatzen du, zeinaren indarrez ezagutza hau beharbadako **agregatua** ez ezik, beharrezko legeen arabera lotutako sistema ere bihurtzen den. Ibon Uribarri

2 (era burutua izenondo eta izen gisa)

Ezein gizartetan aurrezteko joera handiagoa da aberatsen artean pobreen artean baino, horregatik dirua aberatsei kendu eta pobreei ematerakoan, eskari **agregatua** sustatzen da depresioari aurre eginez. Iñaki Heras

Agerpen denak **agregatuak** balitz bezala begiesten dira (aurretik emanak diren zatien kopurua bezala), Ibon Uribarri

3 beste batzuekin batera osotasun bat eratzen duen gauza.

Cementos Rezolak 1.220.000 tona zementu saldu zituen, eta 1.807.000 tona **agregatu** eta 327.000 metro kubo betoi Hormigones y Minasek. Berria - Ekonomia

4 ***balio agregatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Estatu Batuetan, **balio agregatua** are handiagoa da, bai heroinarentzat (txikizkako prezioen ehuneko 57), bai kokainarentzat (txikizkako prezioen ehuneko 68). Diluzioen ondoriozko irabaziak barne hartzen badira, **balio agregatu** osoaren hiru laurdeneko batez bestekoa sortzen da azken helmugako herrialdean. ETC-entziklopedia

5 ***eskaintza agregatu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Alderantziz, hazkunde handiko garaietan, aurrekontuen superabita izan daiteke tresna egokia, inflazioa murrizteko asmoz, **eskaintza agregatua** murriztuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***eskari agregatu***

Ezein gizartetan aurrezteko joera handiagoa da aberatsen artean pobreen artean baino, horregatik dirua aberatsei kendu eta pobreei ematerakoan, **eskari agregatua** sustatzen da depresioari aurre eginez. Iñaki Heras

7 ***irakasle agregatu*** katedratikoaren hurrengo maila duen irakaslea.

Irakasle agregatu izan nahi duten hautagaiek eskakizun hauek bete behar dituzte: doktore titulua izatea; gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzea unibertsitateko irakaskuntza eta ikerketa jardueretan; eta irakaskuntza eta ikerketa jarduera horien gaineko ebaluazio positiboa edukitzea. Berria - Euskal Herria

EAEko Unibertsitate Legearen bost pasarte eraman ditu auzitara Espainiako Gobernuak: **irakasle agregatu** eta laguntzaile bihurtzeko hautagaien gaitasuna epaitzeko metodoa; unibertsitate titulu propioak emateko ahalmena. Berria - Euskal Herria

Irakasle agregatuak arautzen ditu. Berria - Euskal Herria

---

agregazio **1** *iz* agregatzea; agregatzearen ondorioa.

Halakoa da matematikoki kontsidera daitekeen orotan homogeneoa denaren sintesia (sintesi hau berriro **agregazioa** eta koalizioarenean bana daiteke, lehena, handitasun hedatuei doakiela, bigarrena, handitasun intentsiboei). Ibon Uribarri

Gas hitz hori erabili izan da, gero, materiaren izaera edo **agregazio**-egoera zehatz bat adierazteko -gas egoera, materiaren egoera gaseosoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 ***agregazio-egoera***

Gas hitz hori erabili izan da, gero, materiaren izaera edo **agregazio-egoera** zehatz bat adierazteko -gas egoera, materiaren egoera gaseosoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

3 ***difusioz mugatutako agregazio*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Difusioz mugatutako agregazioa edo DLA (ingeleseko siglengatik, "Diffusion-limited aggregation") partikulen higidura browndarraren ondorioz egiturak sortzen dituen prozesu estokastikoa da. ETC-entziklopedia

---

agresibitate *iz* oldarkortasuna.

Ilogikotasun horrek Bilbon erakutsi duen **agresibitatearen** arrazoia. Joxe Azurmendi

Zakurrak zeharo alderantziz ziharduen, birekin: pena bai, ausarki, bakarrik uztean edo, **agresibitaterik** ez. Jose Angel Irigaray

Mutilak goiko hortzez beheko ezpainari kosk egiten zion, itxura pairakorraz, aldi berean ukabilak estutuz, handik pixka batera uholdeka etorriko zitzaion **agresibitateari** eusteko edo. Xabier Mendiguren Elizegi

Ilogikotasun horrek Bilbon erakutsi duen **agresibitatearen** arrazoia. Joxe Azurmendi

"Enpresaburuen aurkako xantaia eta mehatxuak" eta kale borroka, "ustez gaindituta genuen **agresibitatez** berpiztu dena", aipatu zituen gaurko egoeraren ezaugarri gisa. Berria - Harian

Eraso sexualak, berriz, indarkeriarekin, tratu txarrarekin eta **agresibitatearekin** lotuta daude. Luis Elberdin

Francisco Ynduráini, Miguel de Azaolari eta beste jakintsu batzuei sinestera, iraganeko idazleek **agresibitaterik** gabe erabili zuten vizcainoa, soilik baliabide komiko erraza zelako euskaldunek hitz egiten zuten "erromantze aldrebesagatik". Bernardo Atxaga

Kalitaterik ez baina **agresibitatea** berealdikoa zuten artikulu gehienek. Xabier Mendiguren Elizegi

Garbi zegoen B bihurri eta beroak mahainguru orok beharrezkoa duen **agresibitate** izpi hori ipin zezakeela, baina azkarregi zen eztabaidetarako. Bernardo Atxaga

---

agresibo *izond* oldarkorra.

Usoa ere, hegaztirik **agresiboenetakoa** da berez, nahiz bakearen sinbolo unibertsal zuria izan. Patziku Perurena

Pertsonaia hori litzateke benetako maltzurraren eta lapurraren arteko gakoa, baina ikuslea azkar ohartuko da, exekutibo **agresibo** hau gabe ere filmak ez lukeela indarrik galduko. Berria - Kultura

XVII. mendeaz gero, britainiar Itsasketaren Legeak delakoan azaldu zen merkantilismoaren nolakotasun **agresiboa**. Koro Navarro

Hitz batean, Ortega-rena *Volksgeist* nazional eta espainola da, ona; ez *Volksgeist* nazionalista -itxia, **agresiboa**. Joxe Azurmendi

Estrategia **agresiboak**. Berria - Kirola

Emakumezkoek hiriak diseinatzeko aukera gehiago izan balute, hiriak ez lirateke, ziur aski, hain **agresiboak** izango, horizontalagoak eta orekatuagoak baizik. Harkaitz Cano

Aurrerantzean, kalean eskean dabilenari 7.500 euroko isuna jarriko diote, eskea modu oldarkorrean, **agresiboan** egiten badu. Joxerra Garzia

Bakartasunean bizi dena ez da gehiago gai harremanetan jartzeko beste norbaitekin [...] eta arrunt uzkur bilakatzen da, uzkur, herabe edo **agresibo** , bestea ezin suportatuz, nahiago du bere munduan gelditu, bere mundu hetsian errefuxiatu, erretiratu, ohantzean bezala, ohartu ere gabe ohantze goxo epel hori bere hilobia dela. Filipe Bidart

---

agresio *iz* erasoa, erasoaldia.

Inon ez duk inolako **agresioren** , tratu txarren edo legez kanpoko atxiloketaren aipurik. Aingeru Epaltza

Estatu demokratikoak bere burua defendatuz ibili behar izaten dizu **agresio** erlijioso edo ideologikoetatik: dibortzio legean, abortoan, etab. Joxe Azurmendi

Zentsuraren erasoak jasaten ari garen honetan, ez zaigu ahaztu behar batzuetan etxekuen zokoratzea lazgarriagoa dela kanpokoen edozein **agresio** baino. Berria - Kultura

Abiapuntuan egoera minorizatua badago, eta jendearengan mendeetako **agresio** sentsazioa badago, bi bide baino ez daude: edo hizkuntzaren esperientzia sakralizatu, edo etsi eta dena utzi. Berria - Euskal Herria

---

agresore *iz* erasotzailea.

Iruzkingile askok Unamuno-ren ausardia ere nabarmendu ohi du haren Bilboko interbentzioan -euskararen **agresoreak** beti balienteak izaten dira ("valiente discurso"; "la nota española más valiente en estos tristes tiempos", Maeztu-k). Joxe Azurmendi

---

agrikola *iz* nekazaritzari edo laborantzari dagokiona.

Bazen haien artean, halaber, peritu **agrikola** bat, landetxeko ortuak lantzeari ekin ziona, komunitateko beste bizpahiru kideren laguntzarekin. Joan Mari Irigoien

Hazi batzuk ere bazekartzan, perito **agrikolaren** eskariz, astoaren arbaldetan, baratzeetan ereiteko asmoz. Joan Mari Irigoien

---

agroalimentario *izond* janari gisa erabiltzen diren produktuak lantzeaz arduratzen den agrikulturaren adarrari dagokiona.

Enpresa transnazional **agroalimentarioek** planeta osoan barrena denetik banatzen dute: haragi, barazki eta arrain ultra-izoztuak, zukuak, kontserba appertizatuak, txokolatea, gaztak, koka-kolak, ketxup eta bestelako saltsak, ardoa, jogurtak, ura, pizzak. Edorta Agirre

---

agrobioteknologia *iz* bioteknologiaren adarra, janari gisa erabiltzen diren produktuez diarduena.

Paul Christou zientzialari estatubatuarra, landare transgenikoen inguruan ikertzailerik onenetakoa bera, zorrotz mintzatu zen Iruñean joan den astean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) **Agrobioteknologia** Institutuan hitzaldia egin eta gero. Berria - Gaiak

---

agroekologia *(ETCn **191** agerraldi, horietatik **151** azken sei urteetan) iz* nekazaritzaren adarra, landa garapen iraunkor eta ekologikoaz diharduena.

Laborantza industrialak sortutako arazoengatik du **agroekologiak** duen arrakasta. Berria - Gaiak

Steve Gliessman **agroekologian** aditua da. Berria - Gaiak

Agroekologia irakasleak arratsaldeko saioen aurretik hartu gintuen. Berria - Gaiak

---

agroekologiko *(corpusean ez dago; ETCn **92** agerraldi, horietatik **69** azken sei urteetan) iz* agroekologiari dagokiona.

Milpa: artoa, indaba eta kuia landatzen den Erdialdeko Amerikako ohiko sistema **agroekologikoa** da. ETC-literatura, saiakera

Uztaro Kooperatiba Nekazaritza Ekologikoan kokatzen dute, baina horren barnean, beren eredua " **agroekologikoa** " da. ETC-literatura, saiakera

Irentsia izateko arriskuan dagoen landa eremuaren berezko dinamika **agroekologiko** eta ekonomikoaren onarpena aitortzen dion hiri-pentsamenduaren gauzatzea, alegia. ETC-prentsa

Mugimendu **agroekologikoaren** garrantziaren inguruan bat egin genuen. ETC-prentsa

Pentsa, duela gutxi FAOk esana da eskala txikian sistema **agroekologikoa** dela goseteak konpondu ditzakeen bakarra. ETC-prentsa

Horretan ere, noski, giza balioak dituen tresna **agroekologiko** bat nahi dugu, eredu sozioekonomiko eraikitzailea eta ondasunen banaketa sustatuko duena. ETC-prentsa

Euskal Herri **agroekologikoa** pizten ari gara. ETC-prentsa

Gazteek oso argi daukate eredu **agroekologikoa** , baina esperientziarik ez: eta baserritarrek, aldiz, eredu hori ez daukate hain argi, baina esperientzia itzela dute. ETC-prentsa

Gainera, lanketa **agroekologikoak** zoruaren emankortasuna eta jasangarritasuna bermatzen dituela azaldu dute. ETC-prentsa

Nekazaritza industriala baztertu eta bioteknologian, abereek tiratutako nekazaritzan, bidezko prezioetan, lursailen birbanaketan eta hiriko nekazaritzan oinarritutako nekazaritza organikoaren eta **agroekologikoaren** alde egin dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

agroindustria *(corpusean ez dago; ETCn **66** agerraldi) iz* nekazaritzari lotutako industria.

Eskola, neurri batean autofinantzatu egiten da, ikasleen lanarekin jatekoa ekoiztuz eta **agroindustria** txiki baten bidez, eta aldi berean, formazio-bide bat da beharra. ETC-literatura, saiakera

Lurra lortzerakoan ez ezik, nekazari xehearen eta **agroindustriako** enpresen aukeren arteko desoreka handitzen duten araudiak eta betebeharrak ere badaude. ETC-literatura, saiakera

Eta bada laborari gehiengoa, ttipi eta ertainak, langile munduari hurbilago direnak beren errealitatean, **agroindustria** eta bankuen menpe... ETC-literatura, saiakera

Laborarien beste arazo bat **agroindustria** handiek ezarritako prezio politika da. ETC-prentsa

Berriro ere osasun arazo bat da aitzakia, nahita edo nahi gabe, ekoizle txikiak eliminatzeko **agroindustria** komertzialaren faboretan. ETC-prentsa

Nekazarien arabera, laguntzek **agroindustriari** soilik egiten diete mesede. ETC-prentsa

Etorkizunerako prestatzeko aitzakiarekin liberalizazioa bultzatu dute, gure produktuen prezioak jaitsi eta **agroindustrien** negozioak ziurtatuz. ETC-prentsa

Azken batean, **agroindustriako** multinazionalek euren interesen araberako neurriak hartzen dituzte. ETC-prentsa

Zergak igota, **agroindustriari** soja landatzea ez zaio hain errentagarri aterako, eta ekoizpena dibertsifikatu beharko luke. ETC-prentsa

Egungo ekoizpen eredu intentsibo eta industrialak enpresa banatzaile handien eta **agroindustriaren** esku uzten ditu ekoizpen eta merkaturatze politikak. ETC-prentsa

Azpillagak adierazi du nekazaria **agroindustriaren** menpe dagoela: "Nekazariok ez gara gai izan produktuei prezioa jartzeko, eta langile soil bihurtu gara". ETC-prentsa

Gaur egungo **agroindustriaren** ereduaren aurrean, alternatiba da gurea. ETC-prentsa

Nekazaritza-munduan behintzat, gero eta agresiboagoa, liberalagoa eta produktibistagoa bultzatu nahi duten nekazaritza bati eko-baldintza batzuk ipiniz, nekazaritza iraunkorra deitzen dute ofizialki **agroindustria** eta politika-mailako agintariek. ETC-zientzia, zuzenbidea

Agroindustria faboratzen duten politiken aurrean, programa agroekologiko emankor eta eraginkorra eraman du aurrera eta Europako bionekazari gehien dagoen tokia da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

agronomia *iz* nekazaritzaren arazoen azterketa zientifiko eta teknikoa.

Lyssenko biologiaz mintzo zela, haren jarduna hain zen hutsala, hain, are, irri-eragingarria, non orobat deuseztatzen baitzuen beraren **agronomia**-asmabideei bestela apika eman zekiokeen kreditu apurrik apurrena ere. Juan Garzia

---

agronomo *iz/izond* agronomian espezialista dena.

Alexis Iraklievitx Levchine (1798-1879), **agronomo** eta esploratzaile errusiarra. Karlos Zabala

Afera horretako heroia ingeniari **agronomo** bat izan zen, Trofim Lyssenko. Juan Garzia

Alicia Fernandez San Millan ingeniari **agronomoak** garatu du tabako landareetatik albumina lortzeko teknika. Berria - Gaiak

Emaztea galiziarra zen, maistra, eta, senarra, inguru hartan jaioa, injineru **agronomoa**, Donapaleun lan egiten zuena. Rafa Egiguren

---

agropekuario *izond* nekazaritzari eta abeltzaintzari dagokiona.

Erregadioan oinarrituriko ekonomia **agropekuarioak**, aginte zentralizatuaren menpeko lankidetza komunitarioaren koordinazioa eta sedentarizazioa ekarri baitzuen. Patziku Perurena

---

aguantaezin ik **agoantaezin**.

---

aguantatu ik **agoantatu**.

---

aguante ik **agoante**.

---

aguardient *iz* aguardientea, pattarra.

Ontsa gorderik bazen kafea, eta hobeki gorderik, pinta laurden bat **aguardienta**. Marzel Etxehandi

Malkoak begi ertzetan eta gereziekin egindako **aguardient** usual gogorra eskuan, poloniarrek denbora luzez egindako eta zoriak ezabatutako amets handiaren berri eman ohi zion osabak ilobari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bordelen **aguardienta** zerrientzat zela uste zutena, aments? Elena Touyarou

Aguardienta lagun, mendekua ozkan jarri zuten. Itxaro Borda

---

aguardiente *(ETCn **50** agerraldi; orobat **aguardient** **17** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **aguardient** agertzen da) iz* edari oso bizia, ardoaren edo beste zuku hartzitu batzuen destilaziotik lortzen dena.

Aguardientea edaten zuen eta aiton-amonak jotzen zituen. Pako Aristi

-Zoriona ez da **aguardientea**, Ignacio. Karlos Linazasoro

Parodia osoa baita filma hori, biltzen direlarik bi taldeak gauzen zuritzeko, elgarrekin mozkortzen dira **aguardienteak** sortzen duela haien arteko lokarri ona eta denbora berean irri goxoa. Herria

Bizpahiru baso **aguardient** eskatu zituen. Elena Touyarou

Ontsa gorderik bazen kafea, eta hobeki gorderik, pinta laurden bat **aguardienta**. Marzel Etxehandi

-Erraiozue Bordeleko Sabarot herritarrak harekin solastatu nahi duela, nazio gudari kementsuentzat ekarri beharko den **aguardientari** buruz -agindu zien ateko guardei. Elena Touyarou

Hilen naizelarik, ez dut deus garrantzizkorik utziko, eta baldinba ene adiskideek ene ohoretan edanen dituzte hortxe metatuak ikusten dituzun **aguardient** upelak. Elena Touyarou

Honen amak, etxean astebetez, hamar egunez bizirik edukitzen zian arraina: ahoan **aguardientearekin** ogi zatitxo bat jarri eta freskeran edukitzen zian belarrarekin ondo estalita. Pablo Sastre

---

aguazil *(ETCn **196** agerraldi; orobat **agoazil** **9** agerraldi eta **alguazil** **22** agerraldi) iz* Espainian, udaleko edo epaile baten mendeko enplegatua. ik **amabi**.

Alkate asko, orain gutxi arte, sekretarioaren bastoi inozentea izan ohi zen; egungo prentsa eta protagonismo xitalik gabe, jendaje xalo edo xital, baina inoxente batzuez inguratua: herri guziak adarra jotzen zion **aguazil** gixatxarra, eta beste antzeko hirulau alper tripazain edo erdimoxkor grazioso. Patziku Perurena

Koloniako **aguazil** esanekoenen moduan jokatu dute inkisizio kasu batean, eta pikutara bota dituzte Mexikoko Estatu Batuen Konstituzio Politikoa eta giza duintasunari atxikitako eskubide guztiak. Berria - Euskal Herria

Midland trenbideko enplegatu izan zen, *The Irish Times* eta *The Freeman's Journal* egunkarietarako iragarki-biltzaile, ikatz-konpainia batean bide-saltzaile, komisiora, ikertzaile pribatu, **aguazil** laguntzailearen bulegoan enplegatu, eta oraintsu, berriz, udaleko heriotz-epailearen idazkari egin zuten. Irene Aldasoro

Ez zion senarrari ez dirurik ez janik ez gelarik eman; eta, hala, **aguazil**-laguntzaile sartu behar izan zuen gizonak. Irene Aldasoro

---

agudezia *iz* adimen zorrotasuna.

Non dira orain haren kako-makoak, haren **agudeziak**, haren kasuak, haren tenentziak, haren trikimailuak? Juan Garzia

Lizentzia hori ukatzen dute -nik parte hartu nuen hemen- eztabaidan dihardutenek ez egiaren bila, **agudeziaren** harrokeria txoroak eraginda baizik. Imanol Unzurrunzaga

---

agudo[1] *(orobat **aguro** g.er. eta **abudo** g.er.)* **1** *adlag* laster, arin.

Une hartan Kissoff jenerala barrura sartu eta **agudo** hurbildu zen guardiako ehiztarien ofizialarengana. Karlos Zabala

Agudo mugitu beharko duzu Omskera haien aurretik iritsi nahi baduzu. Karlos Zabala

Agudo sartu zen etxera, eta arrapaladan joan zen bulegorantz. Jon Alonso

Erbestean **agudo** ernatu zitzaion herrimina, itzultzeko gogoa. Berria - Harian

Gerra **agudo** bukatuko zen esperantza zegoen. Fernando Rey

Ardi errape laburretan lerratzen, eskuak **agudo** akitzen zitzaizkigun. Itxaro Borda

Agudo ibiltzeko agindu zigun artzainak, eguzkia ihartu eginen zela -bazekien hizketan agure hark- karabineroak iritsi orduko. Koldo Izagirre

Orduan, **agudo** alde egiteko prestatu zen Lisias eta esan zien erregea, gudalburu eta gudarosteari: [...]. Elizen arteko biblia

Betoz **agudo**, galga gaiztorik gabe. Pello Zabala

Hara hor **agudo** erantzuna. Pello Zabala

Baina, elurte handienetakoa, **agudo** urtu bazuen ere, 1993koa. Pello Zabala

Lauaxetak bazekien jada non zebilen, bazekien norantz jo; berehala agertu zitzaion begien aurrean Andra Mari eliza, eta **agudo** heldu zen Juntetxearen atarira ere. Juan Luis Zabala

Agudo zabaltzen zaizkigu begiak harriduraz eta kuriositatez, aspalditiko ipuinon aurrean. Pello Zabala

Hoa **agudo** banketxera ateratzera. Patxi Zubizarreta

Mikel Strogoffek erabaki bat hartu zuen **agudo**. Karlos Zabala

Esan ezak **agudo**, bateriarik gabe geratzen ari nauk eta. Antton Olano

Europan abiatu ziren **agudo**: Espainian mantsoxeago, baina Isabel I. erreginaren aginduz, 12 behatoki nagusiren muntaia ahalbideratu zen. Pello Zabala

Agudo zein astiro, aurrera beti, baina inor konturatu gabe. Karlos Zabala

Bizarra egindakoan, bizkor eta **agudo** jantzi zen, hain lehia biziz, ezen gutxigatik ez baitzen lurrera erori hankak galtzetan sartzerakoan. Jose Morales

-Ikusiko duzue zein **agudo** ahantziko den gutaz, bere lehengo lagunekin egin zuen bezala -Ximurrak, menturaz laketurik. Aingeru Epaltza

Eta oso **agudo**, laster batean, eguerdirako, hemen genuen fronte beroa. Pello Zabala

Guztia ere biziki **agudo** eta negozio-senez egina. Oskar Arana

Agudo asko aurpegiratuko dizue, ezkutuan alderdikeriaz jokatzen baduzue. Elizen arteko biblia

Handik aurrerakoa, baita Berthillon-enean hartu genuen izozkia ere, ondo **agudo** igaro zitzaigun, izanez ere, eta konturatzerako. Patxi Zubizarreta

Tximista bezain **agudo** zetorkien haize erauntsia. Karlos Zabala

Honek, ordea, hiri batean sartu bezain **agudo**, gudari-taldea uzten zuen bera zaintzen. Elizen arteko biblia

Whiskia edateari ekin nion eguneko bigarren hegazkinean jesarri bezain **agudo**, lasaituko ninduelakoan. Xabier Montoia

Berriak igorriko ditugu, ahal bezain **agudo**, eta baliteke gutariko batzuk aldian-aldian elkar topatzea. Agustin Otsoa

Loroak harrigarri **agudo**, inteligentzia jenial batekin, Krapotkin nire izen faltsua ikasi zuen eta etengabe gogorarazten zidan nire faltsukeria eta nire amarrua. Matías Múgica

Batzuek, berriz, ezta azken horretarako ere, nahiago izaten baitzuten egarria sotoetako sagardoarekin ase, ontzietan hain **agudo** galtzen zen uraz baino. Edorta Jimenez

Oi, lehiaren makurra, hain **agudo** laster egitea intzestuzko maindire artera! Juan Garzia

-Ez hindudan horren **agudo** espero, konpañero. Inazio Mujika Iraola

Ongi dago honen **agudo** amore ematea, oldartsua izatea, Peter bera bezain oldartsu eta urduria izatea? Josu Zabaleta

Laborategiek eurek aterako lituzkete generikoak, **agudo** asko. Berria - Gaiak

Agudo baino **agudoago** sartu zen hiriburuan. Karlos Zabala

Etxera **agudo**, elurra ari du! Koro Navarro

-Bombita, barbarin hauek Zeferen tabernara, **agudo**!-Arren goazen orain, **agudo**! Paddy Rekalde

2 ***agudo-agudo*** *adlag* oso agudo.

Agudo-agudo jaitsi zituzten zakuak lurrera, nork berea, eta ireki egin zituzten. Jose Antonio Mujika

Bultzatzen al zaitut zeure zor agiriak ez ordaintzera, bezeroei iruzur egitera, ehun soseko txanponak edonola eskuratu eta **agudo-agudo** pilatzera?... Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agudo agudo (3); **agudo ahazten** (3); **agudo alde** (4); **agudo asko** (6); **agudo baino agudoago** (5); **agudo baino agudoago** (5); **agudo beste** (3); **agudo bota** (3); **agudo egin** (4); **agudo eta** (20); **agudo gertatu zen** (4); **agudo hurbildu** (4); **agudo ibiltzeko** (3); **agudo iritsi** (3); **agudo joaten** (3); **agudo ohartu** (3); **agudo pasatzen** (3); **agudo utzi** (4); **agudo zabaldu** (3); **agudoago eta** (3); **ahal bezain agudo** (3); **aise eta agudo** (3); **baino agudoago** (14); **baita agudo** (4); **bezain agudo** (52); **dira agudo** (3); **egin bezain agudo** (3); **entzun bezain agudo** (5); **ere agudo** (4); **eta agudo** (26); **eta agudoago** (3); **eta agudoak** (3); **hain agudo** (26); **hain agudo eta** (3); **hain agudo gertatu** (3); **horren agudo** (3); **jakin bezain agudo** (3); **nuen agudo** (3); **oso agudo** (6); **sartu bezain agudo** (3); **zen agudo** (5); **ziren agudo** (4); **zoaz agudo** (3); **zuen agudo** (5); **zuten agudo** (3)

---

agudo[2] *izond/iz* tonalitateaz mintzatuz, tinbre altukoa.

Miguel agertzen zait, haren ahotsa entzuten dut lehen aldiz, **agudoa** dauka, eskua luzatzen dit berarekin joateko, itsasotik oinez etorri da Jesukristo bezala [...]. Mikel Hernandez Abaitua

Ahots ederraz grabeetan zein **agudoetan** arazorik gabe aritu zen eta abesti horien emaile idealtzat har daiteke. Berria - Kultura

Horretan, soinu garbia entzun genuen bai senide desberdinen aldetik (behar bada, hobetzekoa dago harizko **agudoena**) bai bakarlarien partetik (tronpeta,biolak, tronpa,tronboiak). Berria - Kultura

Kontzertu guztian egon zen arazo bakarrenetarikoa izan zan biolinaren **agudoen** afinazioa bis honetan.->berria-kultura¬2004-06-27<-Klandestinitatea zela eta, Mixel Etxegarai ezizenarekin grabatu zuen lehenengo disko txikia: "Teknikariak **agudoak** gehitu zizkion ahotsa kamuflatzeko". Berria - Kultura

---

agudotasun[1] *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* *iz* azkartasuna.

Bruff jaunak berehala luma hartu eta esku trebatu baten prestasun eta **agudotasunez** idatzi du adierazpena. ETC-literatura, saiakera

Desagerturik zen, garai bateko bere energia eta **agudotasuna** bezala. ETC-literatura, saiakera

Poliziaren eraginkortasuna eta **agudotasuna** goresten zituen artikulu batean, ijito familia bateko bi kideren atxiloketaren berri ematen zuen egunkariak. ETC-literatura, saiakera

Agudotasunaren garaian patxada da desagertzen ari dena, eta liburuak lasai erosteko moduak ere bai. ETC-literatura, saiakera

Dena dela, deszifratzen proba egin eta errakuntza ezabatuz ikasten dugu, eta nahiz eta deszifraturiko mezua "arartegabekoa" eta "emandakoa" balitz bezala esperimentatzeko zehaztasun eta **agudotasun** handia hartzen dugun, beti agertzen dira zenbait errakuntza, konplexutasun handiko eta eraginkortasun dezenteko mekanismo berezien bidez zuzendu ohi direnak. ETC-literatura, saiakera

agudotasun[2] *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* tonu agudoaren nolakotasuna.

Agudotasun honek berezitasun eta bizitasun handia ematen dio eta urrutitik beste soinu-tresnen gainetik bere hotsa entzun ahal izaten da. ETC-entziklopedia

---

agudotu, agudo(tu), agudotzen da/du *ad* agudoago, lasterrago gertatu.

Borobila buru bat zela segurtatu zuen Graxik; ikuskizunak soa gatibatu zion: hortik hara guztia **agudotu** zen. Itxaro Borda

---

agujeta *(corpusean ez dago; ETCn **58** agerraldi) iz* ezohiko esfortzu gogor baten ondoren izaten den giharretako mina. ik **gogordura**.

Armairuko atea irekitzera makurtu da eta izterretako **agujetak** nabaritu ditu. ETC-literatura, saiakera

-Xabi, ea behingoz ulertzen didazun: arrazoi duzu, Irati zakilean **agujetak** izan arte jotzeko moduan dago, baina horretarako belusa probatu behar badut nahiago dut norbaiti haren biokontua hackeatzeko ordaindu eta haren argazkiei begira santagedaka hil. ETC-literatura, saiakera

Partida bukatu ondoren ez zeukan izterra guztiz ongi, baina uzkurdura txikiren bat edo gainkargaren bat zela pentsatu zuen pilotariak hasieran, eta **agujetak** zirela ere bai uneren batean. ETC-prentsa

Hasieran" oso nekatuta"," **agujetaz** josita", zeudela aitortzen dute:" Lan berria zen guretzat eta horrenbeste ordu lan egitea nekagarria da; gainera, gauza asko ikasi behar ditugu denbora gutxian eta horrek neke psikologikoa ere badakar". ETC-prentsa

Neguan, udan, euripean, eguzkipean, **agujetekin** edo aginetako minekin jo eta fuego entrenatzen direlako. ETC-prentsa

Beti bezala! Hori bai, aspaldiko partez pisuak altxatzen ibili ginen atzo herenegun, eta gaur **agujetak** ditut. ETC-prentsa

Kontatuko dizuet, **agujetarik** eta izerdirik gabe, noski, Behobiarako prestatzen ari banintz bezala bizita zer sentitzen den. ETC-prentsa

Flamenko kantari ugari eman dituen familia batekoa da Dolores **Agujeta**. ETC-prentsa

Agujetak jauzkat gorputz guztian". ETC-prentsa

Egunero bihotzeko **agujetak** kendu ezinik, gustuko ez ditugun musika txerri horiekin korrika egiteagatik. ETC-prentsa

Agujetak jauzkat gorputz guztianâ?. ETC-prentsa

Beraz, baliteke, zientoka lagun horiek bezala, saioa etxeko salan berriz entzuteko gogoarekin eta **agujetekin** irtetea? Baina barre, negar, irribarre eta hasperen nahiko eginda, hustuta eta beteta sentitzea gustatuko litzaidake. ETC-prentsa

Zertarako ondo jakin gabe, bera ere.>>Irudimenari **agujetarik** eragin gabe irudika ditzaket beste batzuk, zertarako erabakitzen. ETC-prentsa

Entrenamendu ikaragarria da, betileetan ere **agujetak** izango dituzue! . ETC-prentsa

Sekulako **agujetak** izan nituen. ETC-prentsa

Kirolean, konfort egoeratik ateratzen zarenean ezerosotasuna etortzen da: **agujetak**, oinetan mina... ETC-prentsa

Keinu konstante moduan irribarrea ez da eraikitzailea (aurpegian **agujetak** sarri izan dituen batek diotsue), bai ordea bizitzarekiko jarrera legez. ETC-prentsa

Anetotik buelta egindakoan baino **agujeta** handiagoak edukitzen nituen finalaren biharamunean. ETC-prentsa

Behin batean, masailetan **agujetak** izaten ditudala kontatu nion lagun bati. ETC-prentsa

Gihar-mina, gogordura edo **agujetak** (medikuntzako izen zientifikoa: mialgia geroratua) giharretako min bat da, banako gizabanako bati ohi duena baino ariketa bortitzagoa aldi batez egin eta gero agertzen zaiona. Gihar horiek prest zeuden mugaren ETC-entziklopedia

---

agulera *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* Dagestanen mintzatzen den hizkuntza.

Agulera edo aghulera agulek mintzatzen duten hizkuntza da, Kaukasoko ipar-ekialdeko hizkuntzen familiakoa, Dagestango hizkuntzen taldekoa eta lezgiar hizkuntzen adarrekoa. ETC-entziklopedia

---

agur *(ETCn **31.162** agerraldi)* **1** *interj* norbaiti, ikustean edo eskutitz baten hasieran (ik **kaixo**) eta bereziki harengandik urruntzean edo eskutitz baten bukaeran (ik **adio**) esaten zaion hitza; akabo, kito.

-Bai, **agur**, eta azkar sendatu. Xabier Mendiguren Elizegi

"Agur, Elsie", esan zuen, eta kalean zehar joan ziren, Ramsay andrea eguzkitakoari tente eutsiz eta kantoian norbaitekin topo egitea espero balu bezala. Anton Garikano

Agur, bada, eta zuen lehiak beza froga enekiko zuen eginbidea. Juan Garzia

Agur, andrea! -gaineratu zuen, Manilovaren eskura hurbildurik. Jose Morales

Agur betiko itsasoari. Lopez de Arana

Agur eta ongi joan. Migel Angel Mintegi

Agur, Venur! Patziku Perurena

Lehenik **agur** erraiten bazenu, bederen. Janbattitt Dirassar

Noraren aitak, ordea, diosaltzat hartzen zituen trufa haiek guztiak, eskua jaso eta **agur** honi, kapela kentzeko imintzioa egin eta adio hari. Anjel Lertxundi

Bisitariak eskuan karta ona zuela jabetu zen eta, **agur** lehenago izandako presa. Edorta Jimenez

"**Agur** bada, Williams andrea" entzun genion Annieri esaten, eta nola zihoan eskaileretan behera sukaldera, eta nola ixten zuen atea. Koro Navarro

'**Agur**! ' esan genien gure lagunei. Joseba Sarrionandia

- **Agur**, atzerritar aita. Juan Kruz Igerabide

Agur, Karmele! Bernardo Atxaga

Agur, adiskide ezezaguna. Gotzon Garate

Zer **agur** eta agurrondo, ordea. Inazio Mujika Iraola

Aurrera, eta **agur**. Paddy Rekalde

Borreroak "**Agur**, egun handia arte" esaten die beti kondenatuei, solemneki, lanari ekin aurretik. Karlos Linazasoro

Agur, gure ametsari! Baina amorru handi bat ere bagenuen, eta amorruak bizirik mantentzen gintuen. Joan Mari Irigoien

Nire burua lepoari **Agur**, egun handirarte kantatzen has dadin? Anjel Lertxundi

• **2** *iz* agurtzea.

Inesek ez du **agurra** itzuli eta pixka bat itxi du atea. Pello Lizarralde

Hiru lagunei kalean tarteka **agur** bat egiten nien, lotsati, nire porrota aitortu ezinik. Edorta Jimenez

- **Agurretan**, omenaldi-bertsoetan, elizakoetan... horrelako zerbait gertatzen da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Joanak ziren ezagun askok **agurra** ukatu zioteneko egunak. Xabier Montoia

Unibertsitateko agintari eta irakasleek haren ihardespen bortitza zein gaizki hartu duten, berez mintzo da gaur egin dioten **agur** hormazkoa. Aingeru Epaltza

Haiek **agurra**, nik **agurra**, adiskidetu egin ginen. Fernando Rey

Agurra, hala ere, Cenonentzat bezain gogorra izan zen Marcelinarentzat. Edurne Elizondo

Ermita eta mutikoa ere haia-haia badoaz, azken **agur** bat eginik ate aitzinean dauden Xantiren aitameri. Michel Oronoz

Berriz ere arrosa pare bat eman zenidan **agur** moduan... **agur** moduan. Eduardo Matauko

Bueltatu nion **agurra**. Joxe Austin Arrieta

Martinek lagundu zien, eta **agurra** oso samurra izan zen. Koro Navarro

-Negu hotza dugu aurten, e? - **agur** gisa, zerbait esateagatik, trabagarri izaten baitzitzaion dirua eskatzea. Iñaki Zabaleta

Mezua horrelaxe dago esana, bat-batean, jarraian, kaixorik gabe, **agurrik** gabe, arnasarik hartu gabe, eta eskegi ere, badirudi presaka eskegi duela bere aparatua, damuari ate guztiak ixteko edo. Pako Aristi

Gero hoteleraino lagundu dit taxi kolektibo baten, Emam Khomeini kaleko Morvarid hotelera, eta alde egin du, **agurretan** gehiegi luzatu barik. Jon Arretxe

"Have a nice day", egunkari saltzailearen **agurra** juxtu ailegatu zitzaion haize hotz boladarekin. Iñaki Zabaleta

-Haurraren xerka nator - erran zion **agur** gisa. Elena Touyarou

Era berean, bide publikoen ondoan egin behar badira, egin bitez aurretik pasatzen direnei atzera jira eta, begiratu batean, beren **agurra** egiteko aukera eskaintzeko moduan. Santiago Iruretagoiena

Agur haren ondoren joatekotan zeudela, Amianok herrian egin zituen lagun batzuk joan zitzaizkion ikustera. Ramon Saizarbitoria

Agurra laburra izan zen: eri muturrak bere ezpainetara eraman eta ondoren nireetan ipini zituen. Migel Angel Mintegi

Eta **agur** horrekin igarotzen dut atea, nire artean galdez: "Zergatik ez dut inoiz pospolorik?". Josu Zabaleta

Urruneko eta **agurrezko** gutunak baino zerbait gehiago ziren, bakardadezko eta tristurazko gutunak baino zerbait gehiago. Jon Muñoz

Jaunak agertu zidan, **agur** gisa hau esateko: Bakea dizula Jaunak. Askoren artean

3 (izenondoekin)

Denbora berean **agur** bero bat egiten diote Pekoetxetako auzoari. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Dembak **agur** arin bat egin zion. Anton Garikano

Jo ordez ferekatu egiten baduzu ere, tutuak tu-tu egingo dizu, eta, deskuidatuz gero, agurtu nahi duzun aspaldiko lagunaren ezpainetan "putakume" irakurriko duzu haizetakoaren bestaldetik, zure **agur** xamur-nahiaren ordain. Joxerra Garzia

Agur protokolarioak trukatu genituen. Jon Alonso

Heldu da **agur** libertariorako unea. Iñigo Aranbarri

Mikel Strogoffek **agur** militarra egin, berehala tsarraren kabinetetik atera, eta, handik pixka batera, Jauregi Berria utzi zuen. Karlos Zabala

Euskaldunekin ere berdin-berdin gertatu izan da, eta andrea bailitzan agurtu izan dugu, berriki arte Arratiako jendeak, eta beste toki askotakoak, gorde izan duen **agur** zaharrean ikusten den gisa. Pello Salaburu

Datuok neure baitarako errepikatu nituen, Ibarrak bere ibilgailu traketsaren leihatilatik egin zidan **agur** alaiari erantzuten nion bitartean. Alberto Ladron Arana

Ibilgailuaren ate ondoko zomorroi metrailetadunak **agur** martziala egin zion, barnera sartzean. Aingeru Epaltza

Beraz, hiri handietan zehar daramatela, hilkorrak **agur** mutuz isilki bedeinkatzen dituenean, ibilbide guztia brontzez eta zilarrez leuntzen diote, opari mardulez aberasturik, eta arrosen elurra jaurtitzen dute, ama eta segizio andanak estaliz. Xabier Amuriza

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agur-musuak eta bizkarrekoak. Patxi Iturritegi

Ivanekin gogoratu da, noski, hura izan baitzen Ivanek egin zion **agur**-oparia, Discman more hura, Sony markakoa. Iban Zaldua

Ostatuan giro atsegina zegoen beti, irratia piztuta, ohiko bezeroen desfilea goizeko zazpietatik gaueko bederatziak arte, beren **agur** errituralekin sartzean, erantzunak bezala. Joseba Urteaga

Ez al dut **agur** musurik merezi? Xabier Paya

-komunikazio-egoera arketipokoa denean: **agur** bertsoak, hiletak, eta abar, edo J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

5 ***agur afari***

Hargatik, egitekoak ziren **agur afariak** poztu bezainbeste atsekabetzen zuen. Patxi Zubizarreta

Merezitako **agur afaria** egingo diote Alvaro Gonzalez de Galdeano txirrindulari ohiari Gasteizko hotel batean, urtarrilaren 7an. Berria - Kirola

Handik gutxira, **agur-afari** bat izan zuen, Altzako lagunarteko beste neska batek ezkondu behar zuela-eta. Joan Mari Irigoien

Baina norberaren izaerak ez du ebaketa on bat zapuzten, eta, dohain handiko zirujaua izanik, hiritarrek **agur afari** bat antolatu zioten -itxurak gordetzearren, agian- Edinburgotik joan aurretik. J.M. Olaizola "Txiliku"

6 ***agur bazkari*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***12*** *agerraldi)*

Egin genion **agur bazkarian** izan zen hura; berak apenas egin zuen hitzik, apenas jan zuen ezer. ETC-literatura, saiakera

Hona hemen R ikastaroko ikasle talde baten **agur bazkarian** abestu bertsoetako batzuk. ETC-prentsa

Ohiko **agur bazkaria** baino gehiago izango da, urte luzez elkartearen zuzendaritzaz arduratu direnek utzi egingo dute-eta kargua. ETC-prentsa

Espetxeko elkarrizketetan jardun zuen Niel Barnard-i **agur bazkaria** eskaini zion honek inteligentzia zerbitzuen burutza utzi zuenean, Robben Island-en komandantea izan zen Willemse jenerala ere bertan zelarik. ETC-literatura, saiakera

7 ***agur egin***

-Agur eginez abiatu zen neskatxa. Joxean Sagaztizabal

Ez zidan **agur egiteko** betarik eman, lan handia zuela esan, eta eseki egin baitzuen. Ramon Saizarbitoria

Hurbiltzen zait bat, **agur egin** eta kapelua luzatzen dit. Koldo Izagirre

Ilunpean hiriratu eta aldapan gora nindoala, gazte zarpailak harri laukitxoetan eserita ikusi nitinan, udako gauari **agur egiten**. Javi Cillero

Esate baterako, aurki zimeldu eta petaloak galduko dituen udaberriko lorea, edo, agian ikusiko duen azkena izango delakoan, udazkenaren etorrerari urtez urte malko itxurako hosto gehiago isuriz **agur egiten** dion zuhaitz zaharra. Imanol Zurutuza

Horrenbestez, **agur egin** zien anaiei, esanez. Jose Antonio Mujika

Ni eta eliz elkarte osoa ere bere etxean hartzen gaituen Gaiok **agur egiten** dizue. Hiriko diruzain Erastoren izenean eta Kuarto anaiaren izenean agur. Elizen arteko biblia

Kanpotik **agur egiten** diete gainontzekoek, bidaiaren arriskuez kezkatuta. Berria - Harian

Agintari politikoak eta herritarrak sartu ziren **agur egitera**. Berria - Mundua

Olatz N-1 errepidera eman beharrean kalearen bestaldera ematen zuen leihoaren ondoan geratu zen eta **agur egin** zien eskuaz autora sartzen ziren bitartean. Harkaitz Cano

Telegrama bat bidali nahi izan genizun, baina beranduegi zen, eta, hortaz, **agur egitera** etorri gatzaizkizu. Koro Navarro

Gero Itxasorengana, eta neskaren aurpegian pena batek irribarre tristez **agur egiten** diola iruditu zaio. Pako Aristi

-Egun on - **agur egin** zion Smithers andreak. Fernando Rey

Francok **agur egiten** dio jaka berdeko gizon heldu sendo bati, galtzada-harrizko kale pikoan gora goazela. Xabier Olarra

Kazetari ingelesak **agur egin** zion, eta, gizalegeak eskatu bezala, bere lankide Alcide Jolivet aurkeztera zihoanean, Mikel Strogoffek hitz egin zien. Karlos Zabala

Denak altxatu dira Danieli **agur egiten**, eta isiltasun estu hori nork apurtuko zain gelditu dira. Urtzi Urrutikoeetxea

Urberuagako Azkurriña Beko baserrira joaten bazara, Rubi zakur bikainak **agur egingo** dizu. Gotzon Garate

Modu bertsuan, bizitzaren azken aldietan ere, sarri-sarri, bizitzari **agur egiten** diote, heriotza gertatu aurretik. Andres Urrutia

Elkarri **agur egin** ondoren, Sergiogatik galdetu zion Arantxak. Joan Mari Irigoien

Etxe batean sartzearekin, bizitzen dakienak **agur eginen** dio etxeko jaunari baino umilkiago etxeko andereari. Herria

8 ***Agur Erregina***

253 Lehen araua da ordubete egotea, esan bezala, Gure Aita osoan; eta hura amaitzean, esango du Agurmaria, Sinesten dut, Kristoren arima eta **Agur Erregina** , ahoz edo gogoz, ohi den bezala. Patxi Altuna

[...] boz goxo batek hitzemana, ahapetik ari da: "Lurreko eta zeruko jaun-andere boteretsuak, otoi, egizue otoi, egun batez, Xanti ene kontra besarka dezadan!" Ermitaren boza entzuten du, gau ilunean, delako Zeruko Erreginari agurra kantatzen duela, "Salve Regina! **Agur Erregina** !". Michel Oronoz

9 *agur esan*

Agur esan zioten elkarri. Jon Alonso

Humphrey Bogart bezalakoa izan nahi du Woodyk: tipo gogorra, emakumeak batere goxotasunik gabe tratatu eta hala ere oinetara jausten zaizkiona; trago bat whisky edan edo emakume bati betiko **agur esan** , aurpegia batere mudatu gabe egingo duena. Xabier Mendiguren Elizegi

Kristo gure jauna, bere Ama bedeinkatuari **agur esan** ondoren, Nazaretetik Jordan ibairaino etorri zen, non baitzegoen San Joan Bataiatzailea. Patxi Altuna

" **Agur" esan** nion. Joseba Urteaga

Agur esan dio alabak, azkenik, eta une horretan deitu dio Oskarri. Iban Zaldua

Mila esker eta **agur esan** ostean, leitzen jarri nintzen. Berria - Kultura

Txapeldunen Ligari **agur esan** dio, eta aurrera begira Espainiako Liga soilik izan behar du buruan. Berria - Kirola

Erosketak egitera doazen amari eta izebari **agur esan** eta aldizkari artean hasi naiz miaka. Agurtzane Juanena

- Itzel - esan zuen Olatzek, sekula esan ez den hitz bat estreinako aldiz esatea **agur esateko** dauden hamaika moduetatik bat besterik ez zela ohartu gabe. Harkaitz Cano

Arratsalderako argituxe, eta juxtu egunari **agur esateko** orduan atera da Amandre Zuria lainopetik, Ulimendiko kaskoan, eta ni, ilunabar askotan bezala, herri inguruko estartaz estarta, inozentzi galduren baten bila nabilela, ustekabean harrapatu nau. Patziku Perurena

Atzo **agur esatean** musu eman nion, hori baino ez; ez da egon beste ezer,. Xabier Paya

Zuri **agur esatera** etorri naiz, Miss Cardew. Antton Olano

Handik bi egunera bikote gazteak mundu guztiari **agur esan** , zaldi gainean jarri eta Beyazit aldera abiatu zen. Fernando Rey

Gero nabarmenki ordaindu zenuen kontua, **agur esan** zenien zure lagunei eta abiatu egin zinen, ez lehenago kanpoan nire zain egongo zinela berriz ere adierazteke. Eduardo Matauko

-Gorra naiz, edo ondo entzun dut sekulakoz **agur esatera** etorri zarela nigana? Anjel Lertxundi

Handik laster **agur esan** zigun. Fernando Rey

Lapurtu didaten bista berreskuratzeko edo berriz ikusiko ez dudanari betiko **agur esateko** , hor joan naiz bada, aldapa pikoan gora, eguberri goiz honetako eguraldi goxoa aprobetxatuta, halako jai berezietan bideak ia hutsik egoten baitira gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala ere, irtetekotan zegoela, ezin izan zion eutsi **agur esateko** gogoari. Karlos Zabala

Agur esan dio buruarekin. Alberto Barandiaren

Eliseo, orduan, idi-parea utzirik, Eliasen ondoren joan zen lasterka, eta esan zion: - Uztazu, arren, aitamei **agur esaten** , eta joango naiz zure ondoren. Eliasek erantzun: - Zoaz, baina itzul zaitez. Oroitu zer egin zaitudan. Elizen arteko biblia

10 *agur eta ohore*

Agur eta ohore zuri Jean-Jacques Housset pilotaria, apirilaren 29 an "Lau-Herrik", aspaldian merexitua zinuen omenaldia eskaini dautzute. Herria

Agur eta ohore , petrolioaren aroari. Berria - Gaiak

Eta bukaeran esan zuen: **"Agur eta ohore** zuri, Eneko! Joan Mari Irigoien

Ezker abertzalean politika poetikoa nagusi izan den garaiari **agur eta ohore** egin dio nolabait hemen Koldo Izagirrek. Markos Zapiain

11 *agur faxista*

Gasteizen zeuden gainerako mojak espainiarregiak omen ziren, gero aitona fusilatu egingo zuten baina amari eta izebari barkatu egingo zieten himno frankista ez kantatzea eta **agur faxistari** uko egitea ikastetxe barruan, oso eskertzekoa zen beldurrez betetako diktadura garai hartan. Mikel Hernandez Abaitua

12 *agur-keinu iz*

Egunkariarekin **agur keinua** egin nion. Edorta Jimenez

Ernestok irribarre soil bat egin zuen, Reginari **agur keinu** bat eginez; neskari koloreak gorritu zitzaizkion, pozez, eta **agur keinu** bat egin zion berak ere. Josu Zabaleta

Galoidunak hatz luzea eta erakuslea elkarri itsatsi eta **agur keinu** bat egin digu bi hatzak kaskora eramanez, begia keinatuz. Harkaitz Cano

Filmaturiko lehen metroak aski: Ivy Manhattango kaian, haren **agur-keinuak** nire teleobjektiboan barrena, goiznabarreko eguzkia Hudsonen gainean. Joxe Austin Arrieta

Euria ari zuen, eta ni gainalde gorenean nengoen, ile-motots kaxkagorridun neskatxa arrotz hura zaldainean barrena lehorrera zihoanean, esku biak hatu banaz zamaturik, eta beraz niri **agur-keinurik** ezin eginik. Joxe Austin Arrieta

Gero, Harryri azken **agur-keinua** egin buruaz eta bulegotik irten zen Lupin irribarre ezti batekin. Iñaki Mendiguren

Hasieran ateratzen zitzaidan noizean behin ez neukan besoarekin **agur keinua** egin nahia, baina ez luzaro. Harkaitz Cano

Ez bata eta ez bestea, ez ziren biratu, baina biek mantendu zuten, nork bere kolkorako, beste lagunak zorte ona opatuz samurtasunez biratu eta sikiera begiradarekin **agur keinu** isil bat egin ote zioneko itxaropena. Harkaitz Cano

Idazkariari **agur keinu** adeitsu bat egin, eta hark adierazitako gelara hurreratu zen. Aritz Gorrotxategi

Olatzek **agur keinu** azkarra egin zion eskuaz. Harkaitz Cano

13 *agur-keinuka adlag*

Ivy ere **agur-keinuka** ... Joxe Austin Arrieta

14 *agur militar*

Kosovo Babesteko Gorputzak ohorezko **agur militarra** egin zion. Berria - Mundua

Mikel Strogoffek **agur militarra** egin, berehala tsarraren kabinetetik atera, eta, handik pixka batera, Jauregi Berria utzi zuen. Karlos Zabala

Inondik ere, bazkaria eraman zion polizia astindu, haren arropa jantzi, eta komisariako ate nagusitik irten zen, atean guardian zegoenari **agur militarra** eginez. Juan Kruz Igerabide

Eguerdian koronel bat heldu zen, eta Martin ikusi eta **agur militarra** egin zion. Koro Navarro

Gazteak **agur militarra** egin zion, harro, eta bera sartu zen egoitzara. Elena Touyarou

Hilkutxa euren parean zenean, hirurak tentetu eta **agur militarra** egin zioten. Berria - Euskal Herria

15 *agur t'erdi (ETCn **38** agerraldi; orobat **agur eta erdi**, ETCn **10** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **agur t'erdi** agertzen da)*

Agur t'erdi , gidari paregabe . Herria

- **Agur eta erdi** , Minas Tiritheko Jaun eta Seneskala, Denethor, Ecthelionen semea! Agustin Otsoa

16 *azken agur*

Bermeon egin zaio **azken agurra** . Herria

Oihane Errazkini **azken agurra** emateko deitutako nazio manifestazioa arratsaldeko 17: 30ean abiatuko da Bulebarretik. Berria - Euskal Herria

Andereñoaren **azken agurra** zen. Mirentxu Larrañaga

Azken aldiz lagundu dit Nasserrek hotelera, eta **azken agurra** egin diogu elkarri, hunkigarriena. Jon Arretxe

Izan ere, Amaliak, 70 urte bete eta geroxeago, idatziz jakinarazi zion bere abokatuari, hil eta gero, Probidentzia izeneko beilatokian nahi zuela **azken agurra** jaso. Josetxo Azkona

Nire ustez, behintzat, poema luzeko azken bertsoa Rimbauden **azken agurra** da. Anjel Lertxundi

Abuztuko asteazken horretan, bederen, eliza jendez ihaurri zegoen, emakumeari **azken agurra** ematera joana. Aingeru Epaltza

Berri on horrekin etorri zen bere ahaide eta adikideer **azken agurren** egitra. Xipri Arbelbide

Duela berrogei urteko saio eta txapelketetan, ohikoa zen lehen edo **azken agurrean**, aurrez aurreko entzuleei diosala egiteaz gain, irrati-entzuleei ere egitea. Andoni Egaña

- Hoa arotzarengana eta gurpiletan irristagailuak ipintzeko eskatu - esan zuen Txitxikovek, eta hirira joan zen, bera bakarrik eta **azken agurra** egitera inoren etxera inguratzeko asmorik gabe. Jose Morales

Hura izan zen haren **azken agurra**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Azken agurra egin nahi nion Yvani. Joxan Elosegi

Eta hitz labur horretan asko zegoen: **azken agurra**, urrutiko deia, guztien kontra - are bere kideen kontra ere - borrokatzeko erabaki irmo eta ikaragarria, eta kexa, kexa motela. Jose Morales

Musu baten hotsa izan zen **azken agurra**. Paddy Rekalde

Hemen galdeginen dautzut **azken agur** bat... Menane Oxandabaratz

Sinbadi egin **azken agur** hura azkena izan ez zen moduan. Edorta Jimenez

17 *eguzkiaren agur* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Ilunabarra ez da barteko ortzian miratutakoa bezalakoa izan, baina murgildu den **eguzkiaren agurra** izugarri gustatu zait. ETC-prentsa

18 *ezkondu aurreko agur* *(corpusean ez dago; ETCn 53 agerraldi)*

Derbia aukeratua zuten lagunek **ezkondu aurreko agurra** egiteko, eta horixe zuen mandatua: hiriko jai-giroan, zuriz jantzita egotea. ETC-prentsa

Ikastetxeak, **ezkondu aurreko agurrak**, multzo handiak, abenturaz gozatu nahi dutenak... ETC-prentsa

Ezkondu aurreko agurrak ere antolatzen dituzte: "Arlo horretan agentzia bat bezala funtzionatzen dugu". ETC-prentsa

Horretarako, zinemaz gain mota askotako lanak egiten dituzte: "Olentzeroak, **ezkondu aurreko agurrerako** panpinak, mozorroak... eskatzen diguten guztia onartzen dugu normalean", dio Iñigok. ETC-prentsa

"Lagun baten **ezkondu aurreko agurra** antolatu behar genuen, eta, ohiko bazkari eta jaiaz gain, zerbait bereziagoa egin nahi genuen", azaldu du. ETC-prentsa

19 *ezkondu aurreko agur-afari* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Ezkondu aurreko agur-afari baterako al dira? ETC-literatura, saiakera

Komisariako lankide baten **ezkondu aurreko agur-afaria** ospatzen ari ziren, eta afaldu ondoren, baten bati bururatu zitzaion fama txarreko lokal hartara joatea, bertako dantzariak Pragako ikusgarrienetarikoak omen zirelako. ETC-literatura, saiakera

Arrasateko neska kuadrilla bat Eibarren **ezkondu aurreko agur-afaria**n. ETC-prentsa

20 *ezkondu aurreko agur-festa* *(corpusean ez dago; ETCn 27 agerraldi)*

Oraingoz, nire biografiako itsaso konbentzionaletan nabigatzen dut: udaldiak, aldi baterako lanak, ikastaroak, **ezkondu aurreko agur-festak**, itxarongelak, museoetako bisitak. ETC-literatura, saiakera

Logela hartu dudan ostatuan hogei bat laguneko kuadrilla dago, **ezkondu aurreko agur-festan** -esan zuen horrekin dena azalduko balu bezala. ETC-literatura, saiakera

Baina hara non, **ezkondu aurreko agur festa** batean tartatik ateratzen den emaztegaiarena egiten ari dela, senargaiaz maitemintzen den. ETC-literatura, saiakera

Angel Azul enpresan lan egiten du eta, dantza erotikoak ez ezik, **ezkondu aurreko agur festetarako** ikuskizunak antolatzen dituzte. ETC-prentsa

Ezkondu aurreko agur festa egiten ari ziren bi talde ere bai. ETC-prentsa

Lehen, **ezkondu aurreko agur festak** egin ohi ziren Jaca inguruetan; baina, azkenaldian, haur txikiak dituzten gero eta familia gehiago biltzen direla sumatzen ari gara. ETC-prentsa

Jai horiekin eta **ezkondu aurreko agur festekin** betetzen dugu urtea. ETC-prentsa

Ezkondu aurreko agur festetan, noiz edo noiz hamar lagun etorri izan dira, surfean batek bakarrik jakin arren, eta ez dute irakaslerik kontratatzen. ETC-prentsa

21 *samin-agur*

Biharko egunkariek zure argazkia erakutsiko dute, hil-oharra, bere arimaren alde otoitz egin eta gaur, hilak zortzi, gorpuarreango mezatara joan zaitezela eskatuten deutsuee, iloba, lehengusu eta beste senideak, bere **samin-agurra** bialdu eutseenei esker beroenak emoten deutsuez... Lutxo Egia

22 *zorion agur*

Garaipen bakarra daukat nik profesionaletan, baina gauza polita da lankideen **zorion agurra** jasotzea. Berria - Kirola

Eta irabazleari, **zorion agurrik** beroena irabazten duen egunean, noski. Berria - Kultura

Berehala ohartu zenez, adiskide tabiratarrek beren poza adierazten zioten arren, inor ez zen larregi luzatzen **zorion-agurretan**. Pedro Alberdi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

agur bat (50); **agur bat egin** (6); **agur baten** (32); **agur baten egiteko** (14); **agur baten egitera** (5); **agur baten egiterat** (7); **agur beraz** (5); **agur berezia** (5); **agur bero** (14); **agur bero bat** (13); **agur beroa** (12); **agur beroenak** (6); **agur deneri** (5); **agur egin** (139); **agur egin eta** (21); **agur egin ondoren** (8); **agur egin zien** (15); **agur egin zion** (22); **agur egin zioten** (11); **agur eginez** (15); **agur egitea** (7); **agur egiteko** (34); **agur egiten** (80); **agur egiten ari** (6); **agur egiten zion** (5); **agur egiten zioten** (5); **agur egitera** (21); **agur elkarri** (11); **agur ere** (7); **agur ere esan** (5); **agur erran** (12); **agur esan** (301); **agur esan behar** (14); **agur esan beharko** (6); **agur esan die** (6); **agur esan diezaioke** (5); **agur esan dio** (30); **agur esan diote** (9); **agur esan eta** (22); **agur esan gabe** (15); **agur esan genion** (6); **agur esan nahi** (8); **agur esan nion** (11); **agur esan ondoren** (7); **agur esan ostean** (5); **agur esan zien** (9); **agur esan zion** (33); **agur esan zioten** (18); **agur esan zuen** (7); **agur esanda** (5); **agur esanez** (5); **agur esango** (25); **agur esango dio** (9); **agur esatea** (17); **agur esatean** (5); **agur esateko** (77); **agur esateko ordua** (9); **agur esaten** (36); **agur esaten ari** (7); **agur esatera** (24); **agur esatera etorri** (5); **agur eta** (72); **agur eta ohore** (29); **agur euzkadi** (7); **agur gisa** (26); **agur gisara** (5); **agur hitzak** (5); **agur horrek** (5); **agur hunkigarria** (10); **agur jauna** (9); **agur jaunak** (28); **agur keinu** (11); **agur keinu bat** (6); **agur keinua** (8); **agur keinua egin** (6); **agur labur** (5); **agur maria** (36); **agur maria bat** (6); **agur meabe** (18); **agur meabek** (18); **agur meabek eta** (5); **agur meaberen** (5); **agur militarra** (8); **agur militarra egin** (6); **agur moduan** (12); **agur t** (10); **agur t erdi** (10); **agur x** (16); **agur x andoni** (15); **agur xiberoa** (6); **agur zuri** (5)

axuantak agur (5); **azken agur** (55); **azken agur bat** (11); **azken agur baten** (24); **baina agur** (5); **bati agur** (7); **behin betiko agur** (5); **bergara axuantak agur** (5); **betiko agur** (11); **betiko agur esan** (5); **bezala agur** (5); **da agur** (8); **dio agur** (15); **diote agur** (12); **du agur** (7); **ederra agur** (13); **edo agur** (6); **elkarri agur** (21); **elkarri agur esan** (5); **ere agur** (16); **ere agur esan** (7); **esan dio agur** (8); **esan genion agur** (5); **esan zion agur** (6); **eskuarekin agur** (9); **eskuaz agur** (17); **eskuaz agur egin** (6); **eskuaz agur egiten** (8); **eta agur** (145); **eta agur egin** (17); **eta agur egiten** (7); **eta agur esan** (29); **eta agur esateko** (5); **eta agur x** (16); **genion agur** (6); **genion agur elkarri** (6); **gure agur** (7); **inori agur** (6); **jendeari agur** (8); **jendeari agur egin** (5); **kaixo eta agur** (17); **miren agur** (42); **miren agur meabe** (18); **miren agur meabek** (17); **miren agur meaberen** (5); **niri agur** (5); **ondar agur** (9); **zen agur** (5); **zidan agur** (8); **zien agur** (7); **zigun agur** (5); **zion agur** (17); **zioten agur** (6); **ziren agur** (6); **zuen agur** (13); **zuri agur** (10)

agurra egin (33); **agurra egiteko** (12); **agurra egiten** (9); **agurra egitera** (6); **agurra eman** (17); **agurra eman zioten** (5); **agurra emateko** (24); **agurra ematera** (19); **agurra ere** (9); **agurra eta** (20); **agurra itzuli** (6); **agurra izango** (5); **agurra jaso** (14); **agurra jaso zuen** (6); **agurra nik** (16); **agurrak egin** (8); **agurrak eta** (17); **agurrari erantzun** (6); **agurren ondotik** (5); **agurrik beroena** (13); **agurrik beroenak** (9); **agurrik egin** (11); **agurrik egin gabe** (9); **agurrik ere** (12); **agurrik ere ez** (6); **agurrik gabe** (8); **amari azken agurra** (5); **azken agurra** (168); **azken agurra egin** (12); **azken agurra egiteko** (9); **azken agurra eman** (12); **azken agurra emateko** (20); **azken agurra ematera** (19); **azken agurrak** (10); **azken agurraren** (9); **azken agurrean** (6); **bake agurra** (5); **behar bezalako agurra** (7); **bere agurra** (13); **bere agurraren** (5); **bere agurrean** (8); **beren agurra** (5); **bezalako agurra** (8); **diote azken agurra** (9); **eta agurra** (15); **eta agurrak** (12); **eta agurreko** (6); **eta agurrik** (8); **eta agurrik beroenak** (5); **eta azken agurra** (8); **haren agurra** (5); **lehen agurra** (14); **nire agurra** (10); **nire agurrik** (5); **zaio azken agurra** (6); **zen agurra** (6); **zion agurra** (5); **zuen agurra** (8)

---

aguraindar *izond/iz* Aguraingoa, Aguraini dagokiona; Aguraingo biztanlea.

Honela esan zion gai emaile **aguraindarrak**: "Negar egiteko gogoa duzu, zergatik ez duzu ba egin behar?" Bertsolaria senarrak jipoitutako emakume baten azalean sartu zen. Berria - Kultura

Berazak ere bide beretik jo du, eta gogoan hartu **aguraindarrak** etxebizitzarik gabe geldituko liratekeela 200 etxebizitzako zozketa batera Lautada osoko biztanleek aurkeztea izango balute, berezitasunik egin gabe: [...]. Berria - Euskal Herria

Aurkezpen lanetan Naroa Sasieta **aguraindarra** ibiliko da. Berria - Kultura

---

agure *(ETCn 6.280 agerraldi)* **1** *iz* adineko gizona. ik **senton**[1]; **atso**.

Gizon izateari ere utzi zion **agure** bat. Ibon Uribarri

Igandean Bilbon galdu zen 83 urteko **agurea** onik topatu dute. Berria - Euskal Herria

Igandean Bilbon galdu zen 83 urteko **agurea** onik topatu dute. Berria - Euskal Herria

Agure haiek zahartzaroaren errukarritasunari, zatartasunari, dohakabetasunari ihes egin eta gaztetasunaren dohainez gainezka izango balira bezala. Ibon Uribarri

Txarrenean, hurrengo parranda **agure** garela Benidormen botako dugu. Berria - Harian

Agurea erretxindu egin zitzaion, beretzat guztiz sakratuak ziren gorabehera haien aurrean Andreasek axolagabekeria erakusten zuelako. Anjel Lertxundi

Azala ezin beteko **agureak** bilakatu gintuzten, hezur iletsuak. Koldo Izagirre

-Hi, beteranoena? -moztu dio **agureak**. Javi Cillero

Gizon helduek edo **agureek** neskatxa oso gazteekin dituzten harremanen kontua bere liburu askotan agertzen da. Ibon Uribarri

Atsoak ez zion ezer kobratu, baina **agureak** -haren senarra, agian- askoz ere diru gehiago kendu behar zion existitzen ez zen informazio baten truke. Xabier Aranburu

Eztul batean ari da **agurea**, barrenak botatzen ibiliko bailitzan. Javi Cillero

Zahagia eskaini zion mutilak, ea **agurea** isiltzen zen edo. Xabier Aranburu

Indarra gaztearen harrotasun, ile urdinak **agurearen** ohore. Elizen arteko biblia

Agurearen aurpegia argitu egin zen, harentzat ez baitzegoen une hartantxe hitz haiek entzutea beste gauza ederragorik. zenbait minutuz, hots ito batez taupadaka jarraitu zuen **agurearen** bihotzak. Anjel Lertxundi

Ez zegoen berotasunik **agurearen** begiradan. Xabier Aranburu

Agurearen janzkera arraroa zela ohartu zen mutila: arabiarra ematen zuen. Xabier Aranburu

Seinaleen hizkuntza ezagutzen zuenez mutilak, **agurearekin** mintzatzera joan zen. Xabier Aranburu

Etxe hartan hildako **agurearen** hileta-oharrak "bat-bateko heriotza" besterik ez zuen aipatzen. Ibon Uribarri

Egutxi **agureari** hainbat zalantza sortu zitzaizkion, baina ez zituen ahoratu. Ibon Uribarri

Negua arriskutsua da-eta **agureentzat**. Ibon Uribarri

Agurea makal-makal jaiki zen. Ibon Uribarri

Egunen batean berak idatziko du Ernest Hemingwayren ***Agurea*** *eta itsasoa* eleberriko Santiago pertsonaia Mundakako Indalexio Tribisarrosperengatik etorri zitzaiola. Edorta Jimenez

2 (izenondoekin)

Une hartan **agure** zahar okitu bat sartu zen, urteek gorputz-adar bakar bat ere onik utzia ez ziotena. Patxi Zubizarreta

Bere adineko gizon bat neskato gazte batekin horrela jokatzeko gauza bazen, pentsatu zuen Egutxik, orduan etxe hartara joaten ziren **agure** zaharragoak pozez zoratzen egongo ziren. Ibon Uribarri

Urrezko hauts-euri gozo bat isurtzen zuen haurtzain narrasen eta bankuetan erdi lotan zeuden **agure** zaharkituen gainera. Irene Aldasoro

Nork hobetsiko du mende erdiko **agure** ezkor hau? Txillardegi

Zinearen salak almazena ematen zuen eta denetik batzen zen han barruko ilunpean, langabetuak, maitemindu bikoteak, **agure** jubilatuak, gu bezalako nerabeak eta jende inozentea ere bai. Joseba Sarrionandia

Aizak, **agure** mainontzi. Anjel Lertxundi

Haren aurpegia zeharo arrunta zen, **agure** zimel askorenaren antz-antzekoa. Jose Morales

Sudur puntan antiojo beltzak dituen **agure** musugorri batengana makurtu da. Monika Etxebarria

Agure kolore-gorri bat eztulka hasi da haserrearen haserreaz, neska bermuta zerbitzatzen ari zaion bitartean. Monika Etxebarria

Nonbait, begitan hartu zenuen gela barrenean eserita zegoen **agure** kaskazuri bat, haren gorbata gogoko ez zenuelako alegia. Mirentxu Larrañaga

Agure burusoil bat zegoen erakusmahaiaren atzean, betaurrekoak sudur gainean eroriak zituela. Aritz Gorrotxategi

Aberats itxurako **agure** lerde-merke bat sartu zen, eta guk ez bezala, lanaren prezioaz galdetu zuen. Berria - Kultura

Han inortxok ere ez zekien mutila merkatariaren semea zela, eta horrek pentsarazi zien mutil hura **agure** bizarzuriaren plazererako zela, haren gutizia bat baino ez. Patxi Zubizarreta

Nik, **agure** kalakarien artean galdurik, ez nuen fitsik erraten. Alberto Ladron Arana

Isil deiak entzun ziren jende artean, eta epaile-longainaz jantzitako **agure** erkindu batek igo zituen urkamendiko eskailera-mailak. Anjel Lertxundi

Hamaikak gainean, ondoko txosna batean aldizkari eta komiki lizunak saltzen zituen **agure** konkordun batengana jo nuen. Anjel Lertxundi

Makurraraziko dute **agure** ttenttea. kanta bat asmatzeko balio izan zion seroraren aitari, Tellagorriri gorroto zion **agure** xelebre bat. Koro Navarro

Berriz ere gogoan ditut Artxandako jatetxeak, eta ez dakit zertan ari naizen **agure** petral honekin, legatza plater baten aurrean egon beharrean. Javi Cillero

Izorra dadila infernuan **agure** txoroa! Bego Montorio

-Burutik zegok **agure** txotxolo hori! -esan zuen jeneralak-. Jose Morales

Agure txotxolotu madarikatua! Agustin Otsoa

Panelek arabiar geometria arkitektonikoko elementu klasikoak irudikatzen zituztela jakinarazi zion neska gazteak **agure** harrituari. Jon Muñoz

Teoria horrek misterio ugari azalduko lituzke: hilak ikusi dituzten pertsonak, ekaitz egunetan ezerezetik agertzen diren **agure** eta atso misteriotsu jakintsuak. Aritz Gorrotxategi

Emilyk eman egingo zidaan, **agure** zikoitz madarikatu horrengatik izan ez balitz. Lopez de Arana

Nola du izena **agure** gizajo tximino-aurpegi horrek? Lopez de Arana

Agure erretxin eta zapuztuaren kontuak, esango didazu. Javi Cillero

Afaritan, **agure** nazkagarria antzeko handikeriak kontatzen aritu zen. Koro Navarro

Etxe hartara hurbiltzen ziren **agure** errukarrien zaharmin higuingarriak urte gutxi barru hertsatuko zuen Egutxi ere. Ibon Uribarri

Oraindik ez zela hain **agure** gupidagarria. Ibon Uribarri

Castellanako **agure** lizunek irabazi zuten. Javi Cillero

Beste **agure** ezinduak eroso daude egoera horretan, neskato lokartuen aurrean lotsatzeko beldurrik gabe, eta euren gaztaroa gogoratzen dute lasai. Ibon Uribarri

Sineskeriaz betetako **agure** arabiarra baino ez naiz ni, eta aintzat hartzen ditut sorterriko esaerak. Xabier Aranburu

Bai ergela **agurea**! Jose Morales

3 (hitz elkartuetan)

Handik gutxira, atso-**agure** talde bat sartu zen elizara. Koldo Biguri

Darruitx xekeak, itxuraz berriro itzarria, burua **agure**-mutilak desagertutako tokira zuzendu, hasperen egin, eta esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Eguerdia da Beasainen, eta **agure** talde bat tren geltokiaren babesean patxadan hizketan ari da. Berria - Ekonomia

4 ***agure gordin***

Burutazioaz lotsatuta, **agure gordin** sentitu da. Urtzi Urrutikoeetxea

Goethe atsegin dut, hala ere; larru-jole handia izan zen, eta **agure gordina** bihurtu zen zahartu zelarik. Karlos Zabala

5 ***agure-mutil*** *pl*

Darruitx xekeak, itxuraz berriro itzarria, burua **agure-mutilak** desagertutako tokira zuzendu, hasperen egin, eta esan zuen. Patxi Zubizarreta

6 ***agure zahar***

-Ama, **agure zahar** bat da. Joan Mari Irigoien

Agure zahar zakarra da, bakartia, bizitza arrantzan edo mahastian igarotzen duena. Itziar Otegi

Pasaiako portu inguruko pabilioiek osatu perfilak bazuen hortzadura izorraturik zuen **agure zahar** baten ahoaren antza: pabilioietako horma eroriak, falta diren hormak, eta horma batetik besterako koska irregularrak. Harkaitz Cano

Dardara egiten al duk zoritxarrak jotako **agure zahar** horren aurrean? Juan Kruz Igerabide

Edo **agure zaharrekiko** duen miresmena, musika apreziatzeko daukan manera, ia negar egiteraino... Pako Aristi

Infantea amets gozo honetan zegoela, ez erabat lo, eta ez erabat esna ere, bere kamarakoa zen Joâo Fernandes de Sousa dendan sartu zen, eta jakinarazi zion bereganaino iritsia zela **agure zahar** bat, eta agureak audientzia eskatzen zuela, eta, aditzera ematen zuenez, guztizko garrantzia zuen afera bati buruz ari zela. Jon Alonso

Ostatuko **agure zahar** horri hizketan aditzen diodala iruditzen zait. Koro Navarro

Amazoniako oihanaren erdian bizi den eta inork ezagutzen ez duen **agure zahar** batek matematikako jauntxoei bidali beren demostrazioak! Jon Muñoz

Bere buruari galdetzen dio orain ea lagunei kontatu ote zien **agure zaharrak** dirua eskaini ziola. Bego Montorio

Zigarroa piztu nuen, eta suak irudi zaharren doinua ekarri zidan gogora, paisaia horretan **agure zahar** bat faltako balitz bezala, kulunkagailuan. Lander Garro

Agure zahar bat dirudik, motel, eta hogei urte besterik ez dituk. Alberto Ladron Arana

Aulki bat aurkitzen du eserita egoteko, eta begi bekartsuekiko **agure zahar** ihar batekin partekatzen du. Oskar Arana

Agure zahar mukizu. Anjel Lertxundi

7 *agure zahartu*

Atarian **agure zahartu** bat zegonan eserita, urteetan kontatu ezineko adinekoa; garaia eta dotorea izandakoa, idorturiko harri zaharra zunan orduan. Agustin Otsoa

Ez izan lotsa buru gutxikoa eta zentzugabea edo lizunkerian dabilen **agure zahartua** zentzatzeaz. Horrela, benetan ongi hezia zarela erakutsiko duzu eta mundu guztiaren onespena zeureganatuko. Elizen arteko biblia

8 *atso-agure pl*

Hortxe dago tranpa, eta hargatik dira zahar jakintsu kontseilu-emaileak horren antojagarriak, eta maitagarria, aldiz, ez dakitela gozo-gozo aitortzen dakiten **atso-agureen** zuhurtzia ezjakintsua. Iñaki Segurola

Urte pila zaramatzatek han **atso-agureek**, eta oraindik Extremaduran janzten ziren moduan jarraitzen ditek kalera irteten. Iban Zaldua

Betikoa: **atso-agureei** lapurtu, beste batzuk mehatxatu eta segurtasun eza areagotu egin du Yoniren bandak. Berria - Euskal Herria

Atso-agure saldo batek inguraturik zeuzkan, nork doluminik sentikorrena adierazteko lehian. Aingeru Epaltza

Atso-agureen bakardadea ogi-apurretan janez gizentzen dira hiriko usoak. Joxerra Garzia

Handik gutxira, **atso-agure** talde bat sartu zen elizara. Koldo Biguri

Zenbat eta handiagoa izan elur-zokorra, zenbat eta **atso-agurearengandik** hurbilago lurraren kontrako talka, are eta handiagoa zen gaztetxoen ospakizuna. Berria - Kultura

Tarifa jaitsiz zihoan jende gazteen gorpuetatik **atso-agureen** gorpuetara. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agure armairutxoak (7); **agure armairutxoaren** (3); **agure bat** (79); **agure bat atera** (3); **agure bat ikusi** (7); **agure bat izan** (3); **agure bat sartu** (3); **agure batek** (23); **agure batekin** (7); **agure baten** (18); **agure batentzat** (6); **agure bati** (5); **agure batzuk** (3); **agure bera** (3); **agure biak** (3); **agure ergela** (4); **agure erkindu** (4); **agure erretxin** (3); **agure eta** (9); **agure gizajoa** (4); **agure haiek** (7); **agure haien** (3); **agure haientzat** (3); **agure haren** (7); **agure hari** (5); **agure hark** (9); **agure hau** (4); **agure hori** (8); **agure horrek** (5); **agure hura** (11); **agure itsu** (3); **agure itsu bat** (3); **agure itsua** (4); **agure jaun** (4); **agure jauna** (10); **agure jaunak** (12); **agure jaunaren** (3); **agure lizun** (4); **agure nazkagarria** (3); **agure onbera** (3); **agure talde** (4); **agure talde bat** (3); **agure txiki** (5); **agure txikia** (5); **agure xahar** (5); **agure zahar** (38); **agure zahar bat** (10); **agure zahar batek** (4); **agure zoro** (4); **agustin izeneko agure** (13); **ari zen agure** (4); **baina agure** (6); **beste agure** (6); **bezalako agure** (5); **bi agure** (9); **dagoen agure** (3); **den agure** (8); **dio agure** (3); **diren agure** (3); **dituen agure** (3); **du agure** (3); **duen agure** (8); **dute agure** (3); **edo agure** (4); **eta agure** (27); **eta agure bat** (5); **ez agure** (3); **gure agure** (3); **hiru agure** (3); **izeneko agure** (18); **izeneko agure armairutxoak** (7); **izeneko agure armairutxoaren** (3); **jantzitako agure** (3); **joaten ziren agure** (4); **ni bezalako agure** (5); **nuen agure** (3); **urteko agure** (6); **zegoen agure** (9); **zen agure** (18); **zeukan agure** (3); **zion agure** (6); **ziren agure** (9); **zituen agure** (5); **zuen agure** (16); **zuen agure batek** (3); **zuen agure jauna** (3)

adierazi zuen agureak (3); **agurea bakar bakarrik** (3); **agurea bere** (3); **agurea bezala** (3); **agurea da** (5); **agurea ere** (10); **agurea eta** (22); **agurea eta itsasoa** (13); **agurea ez** (7); **agurea hil** (5); **agurea hil zela** (3); **agurea hizketan** (3); **agurea lasaitu** (3); **agurea zen** (3); **agureak barre** (4); **agureak barre egin** (3); **agureak begiak** (7); **agureak begiak itxi** (3); **agureak bere** (11); **agureak bere buruari** (3); **agureak berriro** (3); **agureak erantzun** (3); **agureak ere** (6); **agureak esan** (3); **agureak eskua** (3); **agureak eta** (6); **agureak ez** (19); **agureak ez zuen** (6); **agureak neskatoaren** (4); **agurearen begi** (3); **agurearen gorpua** (3); **agurearen ondoan** (3); **agurearengana joan** (3); **agureari eta** (3); **agureren bat** (3); **atso agureen** (3); **baina agureak** (10); **baina egutxi agurea** (3); **begiratu zion agureak** (5); **beste agureak** (5); **beste agureen** (5); **bruciatako agurea** (3); **da agurea** (4); **dio agureak** (4); **dio agureari** (3); **diot agureari** (3); **du agureak** (5); **egin zen agurea** (4); **egin zuen agureak** (8); **egutxi agurea** (16); **egutxi agureak** (43); **egutxi agureak bere** (3); **egutxi agureak ez** (4); **egutxi agurearen** (8); **egutxi agureari** (7); **ekin zion agureak** (3); **erantzun zion agureak** (4); **erantzun zuen agureak** (6); **ernest hemingwayren agurea** (3); **esan zion agureak** (7); **esan zuen agureak** (27); **eta agurea** (20); **eta agurea bakar** (3); **eta agureak** (23); **eta agurearen** (8); **fukura agurearen** (4); **galdetu zion agureak** (3); **galdetu zuen agureak** (3); **geratu zen agurea** (4); **hemingwayren agurea** (3); **hemingwayren agurea eta** (3); **jarraitu zuen agureak** (7); **nuen agurea** (3); **orduan agureak** (3); **urteko agurea** (5); **zegoen agurea** (3); **zen agurea** (32); **zen agurearen** (7); **zen agureari** (3); **zidan agureak** (3); **zion agureak** (31); **zion egutxi agureak** (3); **ziren agureen** (5); **zituen agureak** (6); **zitzaion agureari** (6); **zuen agurea** (12); **zuen agureak** (80); **zuen agurearen** (7); **zuen egutxi agureak** (9); **zuten agurea** (3); **zuten agureak** (3)

---

aguretasun *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* agure izatearen nolakotasuna.

Gizon edadetua da baina **aguretasunik** gabea. ETC-literatura, saiakera

Ez dago **aguretasun** arrastorik 2006ko Bob Dylanengan. ETC-prentsa

Erretiroa zahartzaroarekin, **aguretasunarekin** edo atsotasunarekin erlazionatzen da askotan, eta muga fisiko, funtzional eta psikosozialak ditu ezaugarriak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bere ilea marroia zen eta bere "masail"etatik irteten ziren bi adats zuri zituen, bere **aguretasunaren** ondorioz. ETC-entziklopedia

---

aguretu, agure(tu), aguretzen **1** da/du *ad* agure bihurtu.

Goiztiar **aguretu** den gizaseme horietako bat, espantu aurpegiarekin esnatu zen bat-batean, lurra jergoi hartuta zuen loalditik. Harkaitz Cano

2 (era burutua izenondo gisa)

Olivier **aguretua** idazmakina bat erostera jaisten denean. Berria - Harian

Abu Qais lurrak galdu zituen nekazari **aguretua** da. Berria - Kultura

Urruneko erresuma batean, diru kopuru ederra zela medio, kalifa **aguretu** batek neskatila inuzent eta xalo batekin esposatzea lortu zuen. Ezpain ertzak adurrez beteta zeuzkan aurkezle **aguretu** bat Alcohólicos Anónimosetik anonimoegia izateagatik egotzitako agure ezdeus bat elkarrizketatzen ari zen. Patxi Zubizarreta

Halaxe dago margotua, maisuari orkatilatik eusten diola, haren irakaspenei adi, maisu **aguretuaren** bizitzaren laburtasunari begira. Imanol Zurutuza

Bazkalostean etorri den marrazkilariak, gizon **aguretua** dela esango nukeenak, berak eginiko marrazkiak oparitu dizkit. Edorta Jimenez

Upelen ardura hartuta, adina gorabehera **aguretua** ematen zuen gizon argal bat zegoen. Edorta Jimenez

Gizon goiz **aguretua** zen Mateoren lagun hurko hura. Edorta Jimenez

Adin ertaineko gizon burusoil bat, ardura dorpeek behar baino lehen **aguretua**. Alberto Ladron Arana

Inor ez dut ezagutu adinean hain joana, ezta behin **aguretuta** halako sasoiaren jabea ere. Aingeru Epaltza

Berrogeita hamar urterekin, eta **aguretuta**! Txillardegi

3 irud/hed

Hozkailu on samarrak izanik, tira, baina neure traste **aguretuekin**, astakeria alimalekoa. Aingeru Epaltza

---

aguretxo *iz adkor* agurea.

Platera goraino, **aguretxo** horietatik nork ez zuen ba, edozein eskari ametituko? Berria - Euskal Herria

Azkeneko honetan ere Kimikako eskolako iskanbila bera errepikatu nahi izan zuten ikasleek; irakasleak, ordea -**aguretxo** lehor eta erretxin bat-, aurre egin zien, esanez berari inork ez ziola barrerik egingo ezta txalorik ere, antzezle bat balitz bezala. Josu Zabaleta

Aldian behin **aguretxo** berezi bat topatzen nuen aurrez aurre lore multzo baten ertzean. Josu Zabaleta

Aguretxo txiki, argal bat zen, oso garbia, oso txukuna, bizar gris ongi ebakia erabiltzen zuena. Josu Zabaleta

Hortzik gabeko **aguretxo** bat hurbildu zitzaien astiro eta, irribarre maltzur samarrez, beheko ur arreetan zabuka zegoen arraun-ontzi zahar bat erakutsi zien. Iñaki Mendiguren

Hori esandakoan, fenomeno bitxi hark, **aguretxo** konkortu hark, patioraino lagundu zion Txitxikovi. Jose Morales

---

aguretzar *iz adkor* agurea.

Harriturik ere banago -Santxok esan- nola ez zuen berorrek hankapean hartu **aguretzar** hura eta nola ez zizkion hezur guztiak hebaindu eta nola ez zizkion kokots-aldeak garbitu, bizartxo bat ere hartan utzi gabe. Patxi Ezkiaga

-Beraz, **aguretzar** zentro honetara etortzen al zara? -galdetu zion Lucyk afaria aukeratu zutenean. Joxemari Iturralde

---

agurgarri *(ETCn **841** agerraldi)* **1** *izond* begirunez agurtua izatea merezi duena.

-Ez haserretu, jainkosa **agurgarri** hori. Juan Kruz Igerabide

-Printzesa **agurgarria** -hasi zitzaion-, beharbada oker jokatu dut eta zure haserrea besterik ez dut piztu. Patxi Zubizarreta

Klaudio Lisiasek Felix gobernari **agurgarri** horri, agur! Elizen arteko biblia

Emakumeek ere **agurgarri** izan behar dute eta ez maiseatzaile; neurritsu eta gauza guztietan fidagarri. Elizen arteko biblia

Hara non haren ezpata, Priamo **agurgarriaren** buru xurira heltzear zur eginik antzo den gelditzen airean. Juan Garzia

Beharbada, irakurleak honezkero igarri du bisitaria nor eta gure Pavel Ivanovitx Txitxikov **agurgarria** zela. Jose Morales

Markako probintzian Fermoko anai Joan **agurgarri** eta santua bizi izan zen gure garaian. Askoren artean

-Goraintziak, jaun **agurgarri** hori! -esan zuen Txitxikovek. Jose Morales

-Hamabigarren urteko kanpaina amaitutakoan, jaun **agurgarri** hori -hasi zen postaburua, gelan jaun bakarra barik sei bazeuden ere-. Jose Morales

Zain geratu zen Martin noiz bukatuko jaunaren eta aita **agurgarrien** artekoa. Koro Navarro

Pertsona **agurgarriren** baten gutuna hartzen zenean buru gainean jartzen zen irakurri baino lehen. Patxi Ezkiaga

Hala, ate bi handi ireki ziren eta agure **agurgarri** bat ikusi nuen han barrendik niregana zetorrena. Patxi Ezkiaga

Legegizon **agurgarri** horrek gaztigatu dit ohartaraz diezazudala ezen Danceny jaun zaldunaren kontra ezartzeko asmoz zabiltzan salaketa horrek gisa berean konprometatuko lukeela zure iloba jaunaren omena. Jon Muñoz

Ez du biziki munta, Doktor **agurgarria**, jendek gu geu judika gaitzaten, bereziki deus zuzen jakin gabe jujatzen baldin bagaituzte. Piarres Xarriton

Azkenik, Aita santuak kardinal **agurgarrien** batzar nagusia bildu zuen Perugian, bere aretoan, auzia erabakitzeko. Askoren artean

Frantzisko santua San Pauloko Joan zeritzan Sabinako gotzain **agurgarriagana** ere aurkeztu zen. Askoren artean

Bateratsu Lugoko Don Juan Manuel Carlon kalonje **agurgarria** ere bertaratu da, kapilauez inguraturik. Txillardegi

-Ez nago ados, andereño **agurgarri** hori -esan zion Txitxikovek Ulinkari, burua leunki makurtuz eta irribarre atsegina aurpegian-. Jose Morales

Gaur goizean Zuzendari jaun txit **agurgarriak** deitu dit bere bulegora. Anjel Lertxundi

Ines ahizpari, niretzat Kristogan andre txit **agurgarri** eta gizakietan maitagarrienari. Askoren artean

Zuzendari txit **agurgarriarengana** nindoala, nor ikusiko eta, gutxien espero nuena ikusi dut bertan. Anjel Lertxundi

Toki dohatsu eta santu honetan izan zuen bere hasiera zoriontsua Andre Pobreen eta birjina santuen elkarte ospetsuak eta Ordena guztiz **agurgarriak**. Askoren artean

-Ez al da egia oso gizon **agurgarria** eta txeratsua dela? -gaineratu zuen Manilovek. Jose Morales

2 (gauzei buruz)

Aspaldi zaharrean bildu eta artoski garbitu testuok tonu notatuak edukiko dituzte ondoan, beren sotiltasun **agurgarriak** eskatzen duen bezain zehatz. Berria - Kultura

Baxenafarroako ekonomiak holakoen behar handia badu, eta zinez Manex lantegiko hiru arduradunen urratsa **agurgarria** da. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adiskide agurgarria** (4); **agurgarri bat** (7); **agurgarri eta** (10); **agurgarri hori** (61); **agurgarri horrek** (6); **agurgarri horri** (6); **agurgarria da** (5); **agurgarria eta** (5); **agurgarriak bere** (3); **agurgarriak ez** (3); **aita agurgarria** (4); **aita agurgarriari** (3); **anaia agurgarri** (3); **eta agurgarria** (5); **gizon agurgarria** (6); **gizon agurgarria eta** (3); **jaun agurgarri** (63); **jaun agurgarri hori** (54); **jaun agurgarri horrek** (5); **jaun agurgarria** (28); **jaun agurgarriak** (5); **jaun txit agurgarria** (4); **pike agurgarriak** (3); **txit agurgarri** (11); **txit agurgarria** (22); **txit agurgarriak** (32); **txit agurgarriak bere** (3); **txit agurgarriak ez** (3); **txit agurgarriaren** (23); **txit agurgarriaren** (23); **txit agurgarriari** (14); **zuzendari txit agurgarri** (7); **zuzendari txit agurgarria** (12); **zuzendari txit agurgarriak** (30); **zuzendari txit agurgarriaren** (19); **zuzendari txit agurgarriaren** (19); **zuzendari txit agurgarriari** (14)

---

agurgarritasun *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)* *iz* agurgarri izatearen nolakotasuna.

Sultana prestatuko dut, berorren **agurgarritasunari** ongi baderitzaio. ETC-literatura, saiakera

Andreak bere **agurgarritasun** -aureola galdua zuen: atso bihurtu zen, besteak bezalakoa, gaixoa eta aginduzalea. ETC-literatura, saiakera

Berorren **agurgarritasunak** emandako agindua betez, Jesus eta haren Konpainia etsaiengandik libratzeko modu egokiena proposatzen diot gutun honen bidez. ETC-literatura, saiakera

Aitortu behar dut ezen zenbait aurpegi ez berri, zenbait gezur zahar, **agurgarritasuna** bilatzen duten zenbait irudi, zenbait barkaberatasun, zenbait hitzarmenen aurrez aurre, gorrotoaren tentaldia sentitzen dudala, baita nolabaiteko grinaz ere. ETC-literatura, saiakera

Nortasun-bultzada bat behar duen gorputz erkin samarra bada: berorren goragarritasun, **agurgarritasun**, osagarritasun... ETC-literatura, saiakera

---

agurka **1** *adlag* agur eginez.

Aita **agurka** ari zitzaion, irribarretsu, Harryk harengandik heredatutako ile beltz nahasia erabat nahas-mahas zuela. Iñaki Mendiguren

Eta, onen-onena, ama eta Molly ikusi genituela bizikleta gainean, muinoan gorantz, eskuaz guri **agurka**. Mirentxu Larrañaga

Musika militarra, Chirac pasatzen ikusi diat buru-has, bere autoan jendetzari **agurka**, zaldizko guardia errepublikarrak babestua. Itxaro Borda

Eseri egin ginen azkenean, oraindik ere **agurka** eta zer moduzka, eta halaxe segituko genuen puska batean, gazela-emea bera azaldu ez balitz. Xabier Mendiguren Elizegi

Autza kaskoan, harri lauzak zeruari **agurka** bezala.Gustura filmatuko nukeen, baina ez, eta esku-**agurka** jarraitu nintzaion jendetza artean aienatu zenetik gerora ere. Herria

Gustura filmatuko nukeen, baina ez, eta esku-**agurka** jarraitu nintzaion jendetza artean aienatu zenetik gerora ere. Joxe Austin Arrieta

2 *esku-agurka*

Gustura filmatuko nukeen, baina ez, eta **esku-agurka** jarraitu nintzaion jendetza artean aienatu zenetik gerora ere. Joxe Austin Arrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
agurka ari (5)

---

agurkatze *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* agurtzea.

Baina zer litake meza nausi ospetsuena ere herritarren elgar **agurkatze** beroak eta irri-zaflak gabe, arno xorta baten inguruan hori guzia? ETC-prentsa

---

agurkeinu ik **agur 1**.

---

agurketa *iz* agurtzea.

Sototik irtetean, bikote bat topatu dut, elkar **agurketa** leun isilean. Txillardegi

---

agurmaria *iz Agur Maria* hitzekin hasten den otoitza.

Zenbat **agurmaria** errezatu nizkion nik egun haietan etxean genuen Ama Birjinaren irudiari! Joan Mari Irigoien

Bigarrenik, isekak eta irainak jasaten, haietan bere antza hobeki har dezadan, baldin jasan ahal baditzat inoren bekaturik eta Jainko handiaren atsekaberik gabe; eta hainbestez **agurmaria** bat. beharbada haur denboran asko errepikatzearen poderioz, Aitagurea edo **Agurmaria** bezalako otoitzak zentzurik gabeko zurrumurru baten antzekoak iruditzen zaizkidala. Patxi Altuna

Otoitz egiteko lehen modurako komeni da gogoratzea eta pentsatzea, lehen aginduan, nola bete dudan, eta zertan huts egin; hiru Gure Aita eta hiru **agurmaria** esan bitartean gutxi gorabehera, eta aldi honetan neure hutsik aurkitzen badut, haien barkamena eskatu, eta Gure Aita esan. Patxi Altuna

Esan beza **agurmaria** bat edo Gure Aita bat, zentzumenak banaka gogoratu ondoren. Patxi Altuna

---

agurño *iz adkor* agur xumea.

Hogoi urteren buruan **agurño** bat zor ginion berriz ere HERRIA-ren laguntzaile baliosa hoin luzaz izana zen kalonjeari. Herria

Agurño bat egin eta musuño bat eman ezti-eztia. Janbattitt Dirassar

Behin behar niola **agurño** bat egin, iratzarrarazi behar banuen ere azkenean. Janbattitt Dirassar

Bestalderat behatu, ikusia ez banu bezala segitu, ala **agurño** bat eskaini? Janbattitt Dirassar

Halaere **agurño** berezi bat Mañu eta David bi herritar gazteeri. Herria

---

aguro ik **agudo**.

---

agurraldi *iz* agurtzea.

Automobil urdin bakoitzak, bada, **agurraldi**-saio halako bi jasotzen zuen muinoaren gailurrera iristean, eta automobiletakoek, berriz, irribarrez eta buru-makurka eskertzen zuten harrera-oihu bakoitza. Irene Aldasoro

---

agurtu, agur(tu), agurtzen **1** du *ad* despedidan agur egin.

Jesus jendetza **agurtu** eta etxeratu egin zen. Elizen arteko biblia

Hadoram bidali zion David erregeari, **agurtzera** eta Hadadezer borrokatu eta menperatu zuelako zorionak ematera. Elizen arteko biblia

Asia probintziako eliz elkarteek **agurtzen** zaituztete. Elizen arteko biblia

Amaieran, zutitu, Dama **agurtu** eta eskerrak eman eta gero, lotara joan ziren. Agustin Otsoa

Agurtu ondoren, Josek galdetu zien: -Eta ongi al da aipatu zenidaten aita zaharra? Bizi al da oraindik? Elizen arteko biblia

-Non **agurtuko** dugu elkar? Patxi Zubizarreta

"Bakea dizuela Jaunak" esanez **agurtzen** zituen. Askoren artean

Frantzisko "gizon berri" bezala **agurtu** zuten bere garaian, eta hala aurkezten dute haren biografoek ere, gizakiaren berrikuntzan oinarrituriko mundu berri baten haziaren ereile bezala. Askoren artean

-**agurtu** du orduan osabak aurreko espaloitik zihoan bere adineko gizon bat-. Txillardegi

Agurtu ere gabe aldegingo? Txillardegi

"Ciao cara" **agurtu** zuen gizonak, eta niri ez zidan deus esan. Ramon Saizarbitoria

Eta "bihar arte" esanez **agurtu** dut. Txillardegi

Thierryk musu batez **agurtu** du Alice, eta bostekoa eman dit niri. Iban Zaldua

Joantto erresorte batek bultzatu balu bezala zutitu zen oldarrean lurrera erori zen aulkitik, eta nehor **agurtu** gabe handik lekutu. Elena Touyarou

Agurtzerakoan, estu besarkatu ninduen, ilobaz harro dagoen izeba batek bezala. Juan Kruz Igerabide

Agurtzerakoan, honela esan zion Arzakeko nagusiari: [....]. Joan Mari Irigoien

Elkartzen ginenean, **agurtzean** bezala, bi musu ematen genizkion elkarri, edo, zehatzago esan, masailak ukitzen genituen, normalean kortesiaz egin ohi den bezala. Ramon Saizarbitoria

Agurtzean esan zien: "Berriz ere etorriko natzaizue, Jainkoa lagun". Elizen arteko biblia

Gure ahaide guztiak eta gure adiskideak etxeetatik irten ziren gu **agurtzera**, baina inork ezin zuen gelditu gure lasterketa. Juan Kruz Igerabide

Hurrena, gobernadoreordea **agurtzera** joan zen, eta gero, prokuradorea, ganberaburua, poliziaburua, zerga-biltzailea. Jose Morales

-Agur, gazte maitea -esan zuen **agurtzeko**-. Fernando Rey

Agurtzeko esku-keinua egin eta desagertu zen. Fernando Rey

Haiek ere ikusiak zituzten ahaide eta adiskideak zalgurdietan kanporako bidea hartzen; **agurtuak** zituzten haiek beren jauregiko atarietan, presakako besarkada batez. Felipe Juaristi

-Ezin izan nuen kapelua kendu **agurtzeko**, eskuak atzean lotuak neuzkan. Koldo Izagirre

Ia **agurtu** ere ez gintuen egin; traba egiten genion. Joxe Austin Arrieta

2 norbait ikustean agur egin.

Leandro sartu denean, batera eta bestera begiratu, eta, ikusi nauenean, besoa jaso eta **agurtu** egin nau. Anjel Lertxundi

-Egun on Angie - **agurtu** zuen Carla bisitazainak. Iñaki Zabaleta

-Kaixo, Victorio! - **agurtu** zuen Aracilek. Josu Zabaleta

Gutunak idazten zizkionean, honela **agurtu** ohi zuen: "Kristogan Aita beneragarri eta mundu guztiko Gotzainari". Askoren artean

Egun on, Irazu kapitaina! - **agurtu gaitu** orduan txapel zuria zeraman ofizial mardul eta adinez heldu batek. Txillardegi

Bat-batean auto-bozina batek **agurtu gaitu** . Berria - Kultura

Alabaina, lan mahaira eseri bezain laster, langileak **agurtzera** joan zitzaizkion. Patxi Zubizarreta

Besoa jaso du barra izkinan zegoen norbait **agurtzeko** -. Pako Aristi

-Aizu, Domenga, zuk ezagutu ote duzu noizbait Bittor Ithurbide izeneko norbait? -galdegin zion, **agurtu** ondoan. Elena Touyarou

Aingeruak, Maria zegoen lekuan sartu eta hitz hauekin **agurtu** zuen: Jainkoak agur, graziaz bete hori; sabelean haurra sortuko duzu eta seme bat izango. Patxi Altuna

Orain denek **agurtzen** naute, agur Parra jauna, agur Parrita, adios pure (agure esan nahi du), denek errespetatzen naute. Pako Aristi

Musu ematera hurbildu ez hurbildu egon eta gero, atetik **agurtu** nuen. Anjel Lertxundi

Joaten banaiz **agurtuko** dut zure partez. Bernardo Atxaga

Oso pozik nagok berarekin -esan zuen osabak besoa altxa eta nire laguna **agurtuz** -. Bernardo Atxaga

3 (adizlagun eta kidekoekin)

Adeitsu **agurtu** nuen. Adeitsuki **agurtu** zuten elkar masailean muin emanez, eta segidan biak batera eseri ziren besaulkietako batean. Patxi Zubizarreta

Kirxaren betazal pisutsuak lehengoz altxatu ziren gazteari begiratzeko, eta adeitasunez **agurtu** zuen. Patxi Zubizarreta

-Ez huen txanoaz **agurtu** behar -esan zidan Sidney Evansek-, zein eskolatakoak garen jakingo dik horrela. Koro Navarro

Graxik ere irribarrez **agurtu** zuen, baina zalantza anitz bazuen. Elena Touyarou

Errespetu handiagoz **agurtzen** diat nik ur-zakur bat bikario jauna baino. Koro Navarro

Bihotz-berriturik, lagunak gogotsu **agurtu** , eta itzulerari lotu zitzaion, astiro, begirakunea kaleko bazter guztietara luzatuz. Patxi Zubizarreta

Etxetik irtenda goizero **agurtzen** duzun jendea da aberria, ez zuk gogoan duzun errekortea, aberriaren alde epikoki hiltzeko zure ipuin xelebre horrekin. Joseba Sarrionandia

Bazterretik **agurtu** egiten dituzte eskuak astinduz. Lander Garro

Obispoak oso alai **agurtu** zuen serora eta apaiza. Inazio Mujika Iraola

Gérard-ek berak aski hozki **agurtu** du, Euskal Herrira bortxaz heldu balitz bezala. Eneko Bidegain

Ostatuko morroiak, beti bezala lihozko jaka jantzirik, kapeluari airean eraginez **agurtu** zuen. Jose Morales

Besarkada handi batez **agurtu** nuen: hemen naukazu, Fernando berria naiz, begiratu etxea, zein zoriontsu izango garen, hori guztia eta gehiago esateko gogoa nuen, baina haren begi inkisidoreak berehala hasi ziren dantzan, dena miatuz. Iban Zaldua

Musu labur batez **agurtu** genuen elkar: [...]. Txillardegi

Bixkarreko batez **agurtu** ninduen. Aingeru Epaltza

Ikustekoa da gure geriatra nola sartzen den zahar-etxean: salto txikiak emanez, eskuak fraide batek bezala igurtziz, jendea koipe-jario **agurtuz** . Anjel Lertxundi

-Zapatua arte beraz -eskuaz **agurtu** zuen-, guk bitartean estralurtarren arrastoei usainka jarraituko dugu. Josu Landa

Kalapitan segitu zuten, eta haien txanda etorri zelarik, Aire Konpainiaren langileak euskaraz **agurtu** zituen. Ramuntxo Etxeberri

-Banuen gogoa zu buruz buru **agurtzeko** , Arruabarrena -esan dit erdaraz-. Txillardegi

Gogoaren kontra **agurtu** zuen, esku keinu batez. Elena Touyarou

4 irud/hed

Eguerditan xuxen soldaduek **agurtzen** zuten bandera, sekulako ospakizunetan, aztalak elgarri joz eta beso eskuina luze luzea altxatuz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adeitasunez agurtu (6); **adeitasunez agurtu zuen** (3); **adeitsu agurtu** (4); **agurtu ahal** (3); **agurtu aitzin** (3); **agurtu aurretik** (17); **agurtu baino** (7); **agurtu baino ez** (3); **agurtu baino lehen** (3); **agurtu behar** (11); **agurtu behar dute** (3); **agurtu behar izan** (3); **agurtu beharra** (4); **agurtu da** (4); **agurtu ditu** (22); **agurtu dituzte** (3); **agurtu du** (28); **agurtu dudan** (3); **agurtu dugu** (5); **agurtu dut** (13); **agurtu dute** (17); **agurtu egin** (45); **agurtu egin dut** (3); **agurtu egin nuen** (3); **agurtu egin zituen** (8); **agurtu egin zuen** (13); **agurtu egiten** (10); **agurtu ere** (20); **agurtu ere egin** (6); **agurtu ere ez** (5); **agurtu eta** (94); **agurtu eta aurrera** (3); **agurtu eta eskerrak** (3); **agurtu eta gero** (6); **agurtu eta irribarre** (3); **agurtu ezazu** (3); **agurtu gabe** (35); **agurtu gabe atera** (3); **agurtu gaitu** (5); **agurtu genituen** (3); **agurtu genuen** (22); **agurtu genuen elkar** (9); **agurtu gintuen** (12); **agurtu izana** (3); **agurtu nahi** (25); **agurtu nahi izan** (5); **agurtu nau** (15); **agurtu ninduen** (49); **agurtu ninduen bere** (3); **agurtu nuen** (39); **agurtu nuen eta** (4); **agurtu ondoan** (5); **agurtu ondoren** (26); **agurtu ostean** (8); **agurtu ziren** (3); **agurtu zituen** (56); **agurtu zituzten** (17); **agurtu zituzten lau** (3); **agurtu zuelarik** (5); **agurtu zuen** (136); **agurtu zuen eta** (9); **agurtu zuenean** (4); **agurtu zuten** (60); **agurtu zuten elkar** (11); **agurtu zuten eta** (6); **agurtuko du** (3); **agurtuko dut** (3); **agurtuko dute** (4); **agurtuko zuten** (3); **ama agurtu** (3); **andere auzapezak agurtu** (3); **artean agurtu** (5); **auzapezak agurtu** (3); **auzapezak agurtu ditu** (3); **batek agurtu** (16); **batek agurtu du** (3); **batek agurtu ninduen** (5); **batekin agurtu** (13); **batekin agurtu zituzten** (3); **batez agurtu** (35); **batez agurtu du** (3); **batez agurtu ninduen** (4); **batez agurtu nuen** (6); **batez agurtu zituen** (3); **batez agurtu zuen** (5); **begirunez agurtu** (4); **begirunez agurtu eta** (3); **berriak agurtu** (3); **bezala agurtu** (13); **bezala agurtu zuen** (3); **buruaz agurtu** (5); **eginez agurtu** (3); **elkar agurtu** (44); **elkar agurtu eta** (7); **elkar agurtu genuen** (8); **elkar agurtu ondoren** (5); **elkar agurtu zuten** (7); **elkar agurtuko** (3); **emakumea agurtu** (5); **emakumea agurtu dut** (3); **emanez agurtu** (6); **ere agurtu** (7); **esanez agurtu** (10); **eskuarekin agurtu** (3); **eskuaz agurtu** (13); **eskuaz agurtu zuen** (4); **eta adeitasunez agurtu** (3); **eta agurtu** (37); **eta agurtu egin** (14); **eta agurtu egiten** (3); **eta agurtu ere** (3); **eta agurtu gabe** (4); **eta elkar agurtu** (7); **eta halaxe agurtu** (3); **eta txaloka agurtu** (4); **euskaraz agurtu** (4); **ez agurtu** (3); **ez zuen agurtu** (4); **gabe agurtu** (6); **gizalegez agurtu** (3); **gizona agurtu** (3); **guztiak agurtu** (3); **halaxe agurtu** (3); **handiz agurtu** (7); **handiz agurtu zuten** (3); **hura agurtu** (6); **inor agurtu** (4); **jendea agurtu** (4); **keinu batez agurtu** (3); **lagunak agurtu** (8); **makurtuz agurtu** (4); **musu emanez agurtu** (4); **nagusia agurtu** (3); **nehor agurtu** (4); **nehor agurtu gabe** (4); **nola agurtu** (3); **norbait agurtu** (3); **onez agurtu** (4); **txaloka agurtu** (10); **txaloka agurtu zuten** (3); **txaloz agurtu** (3); **txistuka agurtu** (3); **zuen agurtu** (4)

agurtzeko asmoz (5); **agurtzeko astirik** (4); **agurtzeko aukera** (6); **agurtzeko eta** (11); **agurtzeko keinua** (4); **agurtzeko ordua** (5); **agurtzeko tenorean** (3); **agurtzen ari** (11); **agurtzen ari zela** (3); **agurtzen ditu** (7); **agurtzen du** (11); **agurtzen dugu** (5); **agurtzen dut** (3); **agurtzen dute** (7); **agurtzen eta** (4); **agurtzen gintuen** (3); **agurtzen naute** (4); **agurtzen ninduen** (3); **agurtzen ninduten** (4); **agurtzen zaitut** (3); **agurtzen zaituzte** (6); **agurtzen zaituztet** (4); **agurtzen zaituztete** (6); **agurtzen zituen** (12); **agurtzen zuela** (3); **agurtzen zuen** (11); **agurtzen zuten** (12); **agurtzera eta** (6); **agurtzera etorri** (4); **agurtzera hurbiltzen** (3); **agurtzera joan** (15); **agurtzera joan zen** (3); **bat agurtzeko** (5); **bat agurtzen** (3); **bat agurtzera** (4); **batekin agurtzen** (4); **batez agurtzen** (4); **buruaz agurtzen** (3); **denen agurtzeko** (3); **eginez agurtzen** (5); **elkar agurtzean** (3); **elkar agurtzeko** (7); **elkar agurtzen** (9); **ere agurtzen** (3); **esanez agurtzen** (4); **eta agurtzeko** (5); **eta agurtzen** (6); **eta agurtzera** (6); **ez agurtzeko** (3); **goizero agurtzen** (3); **guztiek agurtzen** (5); **guztiek agurtzen zaituztete** (3); **haiek agurtzera** (3); **hura agurtzeko** (3); **lagunak agurtzeko** (6); **zen agurtzeko** (3); **zen agurtzera** (3); **zitzaizkidan agurtzera** (3); **zitzaizkion agurtzera** (3); **zuen agurtzeko** (3)

---

agurtxo *iz adkor* agur xumea.

Aste eguna, eta kontzientzia kolektibo bati eragingo liokeen agindu bat entzunda bezala desagertzen ziren denak nire ingurutik, batzuk isilik eta **agurtxo** bat esanda, besteak erlojua begiratu eta ezuste tamalgarria jaso duenaren imintzioak eginez. Pako Aristi

---

agurtza *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* omenezko ekitaldi erlijiosoa.

Arrantzale erretiratuek euren bizipenak kontatuko dituzte **Agurtzan** . ETC-prentsa

---

agurtzaile *iz* agurtzen duen pertsona.

Eguzkiaren urte-itzuli askorekin, eraztuna barrutik mehetu egiten da darabilen hatzean, tantaren erorrerak harria zulatzen du, burdinazko golde-nabar okerra soroetan txikitu egiten da ezkutuki, eta harri-bideak jendearen oinetan higaturik dakutsagu; halaber ate ondoetan, brontzezko irudiek **agurtzaileen** pasaerako igurtziarekin mehetuz doazkien eskuinak erakusten dituzte. Xabier Amuriza

---

agurtze *iz* agur egitea.

Hil-herrietarat egin itzuliak ukan du ere bere erran nahi osoa: azken agurra zuri, Maite, "konpañero" airean, eta gero **agurtzeak**, besarkadak, pottak ahaide eta laguneri, denek inguratzen ginituela bereziki zure familia hurbilekoak, bizi lagun, haur, aita-ama eta anaiak. Herria

Isilik, UEFArako sailkatuta, 1997-1998ko azken partida horren antzeko beste batekin Larrazabal **agurtzea** besterik ez da geratzen. Berria - Kirola

Zuri-beltzok gorroto zieten aita zuriei, eta debeku zuten aiten ondoan egotea, aitok **agurtzea**; gorroto zieten halaber amei, beltzak eta esklaboak zirelako. Markos Zapiain

Goiz hartan agur erran zidanetik gertatutakoak gogoan, ezinezkoa iruditzen zitzaidan emakume hark horren normal **agurtzea**. Alberto Ladron Arana

Goizean iristean egiten genuen lehen gauza Sun-hartza **agurtzea** izaten zen, gaua bakar-bakarrik igarotzen baitzuen, gelako azken ilaran eserita. Juan Kruz Igerabide

Gaur ez zaigu burutik pasa ere egiten telebista ikus-entzuleak **agurtzea**. Andoni Egaña

Eta noski, "hola" ahoskatzea -lau letra eta, gainera, bat mutua- ez zen ahotsagatik ezagutarazteko aztarna handia, are gehiago nigandik euskaraz **agurtzea** espero zezakeela kontuan hartuta. Ramon Saizarbitoria

Eta lehen ikasgaia izango zen klan guztiak banan-banan **agurtzea**, ez bazuen inor irainduta sentitzerik nahi. Joanes Urkixo

---

agurtzearren *adlag* agurtzeko.

Oraingoan ere, Zürichen, hura nire ondoan geratu eta ni **agurtzearren** kotxetik jaitsi zenean, ez nuen ezagutu. Joxe Austin Arrieta

Ondotik joan banintzaion, ez zen izan neska **agurtzearren** -lehengo ortzegunean eman zidan tratua gogoan neukan oraino-, lekutzeko ordua nuelako baizik. Aingeru Epaltza

Sekula ez baitzen hango biztanleetako bat sentitu, sekula ez haietako bati kontu egin, sekula ez baitzuen eskua garbitu haietako bat **agurtzearren**. Patxi Zubizarreta

Oisinek eta Cumhailek ukabilak jaso zituzten goraintzi gisa, eta bitartean gerlari batek adarra jotzen zuen, **agurtzearren**. Joanes Urkixo

---

agurtzeke *adlag* agurtu gabe.

Da Ruak arrapataka itsuaren biolina hartu eta zakuan gorde zuen txirularekin batera eta handizkiak **agurtzeke** lasterka jo zuen portu aldera. Felipe Juaristi

---

agusagailu *(orobat **agusailu** g.er.) iz ipar* dibertsioa, jostaketa.

Zer dira zure denbora pausuak edo **agusagailuak**? Menane Oxandabaratz

Entzierroak ere arras gostukoak zauzkan, 14 urtetan abiaturik **agusagailu** arriskutsu horietan. Herria

Aiherra Izturitzeko koralak parte hartuko duen mezarekin hasiko da eguna 11etan, ondotik hurrupaldi eta bazkaria Denen Etxean, usaiako **agusagailuekin**. Herria

Aurten ere "Goxo lekua" **agusagailu** zentroa idekia izanen da, uztailaren 12 tik (astelehena) agorrilaren 13 a arte (ostirala). Herria

Euskal kultur erakundeak laguntzen ahal ditu gazteen **agusagailu** kontratuen barne euskarari toki baten emateaz gogoetatzen direnak. Herria

---

agusailu ik **agusagailu**.

---

agusatu ik **abusatu**[2].

---

agustindar *(orobat **aguxtindar** g.er.)* **1** *izlag/izond* San Agustinena, San Agustinen erregelari dagokiona.

Historiaren ikuspegi judaikoaren **agustindar** bertsioa. Iñaki Mendiguren

Arantxa Jaka, Arritxabaletan 31 urteko **aguxtindar** serora kontenplatibaren lekukotasun aberatsa. Herria

Jarraian Valladolidera igan zen, han andere Juana printzesa gobernadoreak Leongo san Isidro eta Parraceseko Santa Maria **agustindar** bi komentuen erreforma eginarazi baitzion. Piarres Xarriton

Proiektu berri hori aurrera eraman ahal izateko dezente prestaturik agertu ziren zenbait intelektual berri, batik bat Frantziskotar Eskolaren inguruan; bertan, Aristotelesen balioa ukatu gabe, funtsean planteamendu **agustindarrari** eusten baitzioten filosofian ere. Askoren artean

Nebridiori 388an idatzitako beste gutun batean, 7. Gutuna, giza gaitasun bati buruz mintzo zaio: oroimenari buruz, antropologia **agustindarra** lantzerakoan giltzarri izango den gaitasunaz, alegia. Imanol Unzurrunzaga

Beste puntu eztabaidagarri bat Descartesen proposamenean ideien izatearena edo balioarena da, kartesianismoaren oinarria bera alegia -platoniko-**agustindarra**-. Askoren artean

• **2** *iz* San Agustinen erregelari jarraitzen dion pertsona.

Santo Domingo ugarterako eta Txilerako espedizioetan partaide izan zen eta 1553 an, **agustindarren** konpainian sartu zen, Mexikon, eta 1564 ean Filipinetara joan espedizioburu gisa. Herria

Iruñeko **Agustindarren** industrialdean gertatu zen ezbeharra, goizeko zortziak jota zirela. Berria - Ekonomia

---

agustinismo *iz* San Agustinen doktrina.

Bilduma honetarako aukeratu ditugun testuetan agertzen den **Agustinismoaren** ondareko gaiak nabarmenduko ditut. Imanol Unzurrunzaga

Erdi Aroko Kristau Herrian bi errealitate hauen arteko bereizketa iluntze aldera zabaldu zen jokaerari **Agustinismo** politikoa deitu zitzaion, baina Agustinek ez zuen inoiz joera hori agertu. Imanol Unzurrunzaga

---

agustino *(corpusean ez dago; ETCn **92** agerraldi) izond* San Agustinen erregelari jarraitzen dion fraidea. ik**agustindar**.

Gure sendiko aurrekoen artean ere baziren frantziskotar bat eta **agustino** bat. ETC-literatura, saiakera

XIV. mendean fraile jeronimotarrak egon ziren, 70 urtez, baina behin 1473an jauregia utzita, Iruñatarrek **agustinoei** ematea erabaki zuten. ETC-prentsa

Beste lekuetan ere gertatu zen hori: Bilbon, Oñatiko **agustinoetan**... ETC-prentsa

Eskekoak dira baita ere domingotarrak, **agustinoak** eta karmeldarrak. ETC-prentsa

XIII. mendetik XIX.era bitartean, Orreagako **agustinoak** izan ziren Artikutzako maizter. ETC-prentsa

Erasmok berak lehen hezkuntzako eskolan ikasi zuen 13 urtera bitartean, 22 urtera arte **agustinoekin**, eta ondoren Pariseko Unibertsitateko ikasle izan zen. ETC-prentsa

Agustinoen elizan meza izango du, 12: 30ean, hildako bazkideen alde, eta segidan bilera, euren egoitzan. ETC-prentsa

Kuartel Jenerala, Bermeoko errepidean dute, **Agustinoen** kolegioan. ETC-prentsa

Donato Anaiak talde laiko bat da, **Agustinoei** oso lotua. ETC-prentsa

Gero, 60ko hamarkadako burrunbaldiarekin batera, Gasteizera jo zuen, artean **agustino** zela, eta komentuko bizimodua utzita etxebizitza arrunt batean jarri zen beste erlijioso batzuekin batera. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aguxtindar ik **agustindar**.

---

ah *(orobat **aha**)* **1** *interj (errepikatua)* kar. ik **kar**[1]–; **jaja**.

Ah ! **ah** ! eta **ah** !, irri-karkaraz hartzeko moduko kontua dirudi Natanaelen itsumena. Anjel Lertxundi

Ekin zion nire harpa akordatzeari, eta gero, ekarri zidan, eta erran zidan: **"Ah** ! Begira, masturbatzen ari natzaio, musukatzen, burua galtzear nago... **aha** ! **aha** ! **aha** ! lagunak, ezin dut gehiago! Jon Muñoz

2 zerbaitez konturatzean erabiltzen den interjekzioa.

- **Ah** , zuk eskatu duzu? Xabier Olarra

- **Ah** !, zorionak!, farfailak ez dira erabiltzen jadanik. Jose Morales

- **Ah** !, adabatua, adabatua! -egin zuen oihu mujikak. Jose Morales

Ah , bai!, ahaztu baino lehen esan behar diat hirian denak daudela hire kontra. Jose Morales

- **Ah** , hori Clara da, zure lehengusinen ahizpa txikia -erantzun zion izebak-. Iban Zaldua

Ah , hemendik aurrera lehenago deitu beharko dizut, badakizu: zuen aldean orain zortzi orduko aurrerapena dugu. Patxi Zubizarreta

"Zailena nor-nori-nork eta baldintzak dira! **Ah** ! Eta lotsa kentzea". Berria - Kirola

Ah , eta ez ahantzi Rubenen argazkia ekartzea, badinat ezagutzeko gogoa eta. Patxi Zubizarreta

" **Ah** , itxaropena eta alaitasuna berreskura diezazudan nahi duzu," esan zuen Jainkoak. Xabier Olarra

Ah , hori, zera, medikuak esan du kimioterapiagatik dela, problemarik gabe pasako dela, erantzun zidan eguraldiaz arituko balitz bezala. Mikel Hernandez Abaitua

-Ah ! -oihu egin zuen Andreasek-, zoragarria! Matías Mujika

Halakoa bai, ni, zu, **ah** ! zu ez, barkatu, Garridoz ari naiz. Patziku Perurena

Ez zuen ezer ulertzen eta dena esplikatu behar zitzaion, eta gero esaten zuen: **ah** . Koldo Biguri

– **Aha** -Leireren baieztapena-. Aitor Arana

3 admirazioa, desira, nahigabea adierazten duen interjekzioa.

Ah , zer abentura ona! Milesker, Fermin, momentu on bat pasatu dugu zurekin. Herria

Ah !, zein urruntasun distiratsua, miragarria, Lurrean parerik gabea! Jose Morales

Ah , Pavlusha!, nola aldatzen den gizabanakoa!, hain zen zintzoa, apala, otzana! Jose Morales

Ah ! Ez bide zitzaion eder ez, bere kofesorak hoin idorki larderiatze hori. Xipri Arbelbide

---

aha ik **ah**.

---

ahabia *(orobat **ahabi**)* **1** *iz* txilarraren antzeko zuhaixka, fruitu mamitsu beltzaxkak eta jateko onak ematen dituena *(Vaccinium myrtillus.);* zuhaixka horren fruitua.

Esku ezezagunek uzten zizkidaten lanaulkiaren gainean, gauez, landareak eta landareak, egunero mota desberdinekoak; guztiak ere etxe-etxekoak ziren, eta ez dakit nola aukeratzen zituzten: tipula, baratxuri, azenario, lapabelar, **ahabia** , milorri, sahats, salbia, erromero, txakur-arrosa, ipuru. Juan Garzia

Pago lerdenak xutxuta erroitza patarrean **ahabi** zamarrak har-ondotan. Pablo Sastre

Ahabiak egongo zirelakoan. Anton Garikano

Gustuko ditut **ahabia** -pastel ederrak, edo limoi-merengezko pastel gozoak. Mirentxu Larrañaga

ahabi garratzez egindako saltsa. Iñaki Mendiguren

Sagar eta **ahabi** zukua daukat. Koro Navarro

Aitonak eta bilobak txokolatesnea hartu dute, eta ogi errea **ahabi** konfiturarekin. Eider Rodriguez

2 ***ahabia gorri*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Egunero **ahabi gorrien** zukua, pepino eta espinaken zukuak, edo errefau-hostoen zukua edateak zistitisari aurre hartzen laguntzen du. ETC-prentsa

Egoera klimatiko ezberdinak baldintzatuta hainbat landare-mota aurki daiteke Kemijärvi udalerrian; hala nola, pinuak, **ahabi gorriak** eta iparraldean eta ekialdean aurki daitezkeen urki zilarkara eta izeidiak. ETC-entziklopedia

---

ahago *iz* mingotxaren familiako belarra, sustrai-luzea eta hosto-zabala; hostoak, egosita, bizkorgarri eta heste-aringarri gisa erabili ohi dira *(Rumex patientia).*

Eta gure alorrak oraino zenbait **ahago** tzar, zalke edo kardu badu ere, ez girea hor aitzina segitzeko, garbi eta apaintzale lanean! Herria

---

ahagorri *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* ahagoa.

Dagozkien euskarazko izenak jasotzerakoan dator zurrunbiloa: aipatutako mineta, mingotsa, goxoa, belar-gazia, eta gazigarratzaz gain andere-belarra, ahagoa, **ahagorria** , zioblatxa, ziolatxa, ziorlatz eta ziorlatxa, atxitabla, andragarratza, [...]. ETC-prentsa

---

ahaide *(orobat **ahide** g.er.)* **1** *iz* norbaitentzat, bere familiako beste norbait. ik **askazi**.

Xahar ala gazte, gizon ala emazte, lagun eta **ahaide** , han ginen bilduak bildutasun haundienean, malkoak begietan. Herria

-Nik **ahaideak** baditut, han -erantzun zuen-. Elena Touyarou

Rosek **ahaide** bakarra zuen, ahizpa ezkondu bat, eta beste herri batean bizi zen. Mirentxu Larrañaga

-Halabeharrez, Xanjoxeren lehenengo bi abizenak geureak ere badira, beraz; haren **ahaide** gara, batetik eta bestetik. Xabier Etxabe

Ahaide dugu gizon hori, gure ardura duenetako bat. Jose Antonio Mujika

Ez dinat amarik, eta ezta, egia esan, **ahaiderik** ere. Antton Olano

Egun tristea zen haientzat, ez lagun, **ahaide** edo adiskideren bat hil zitzaielako, baizik eta iraganeko urteetan hirian bizi ondoren geroko esperantzarik gabe geldituak zirelako. Felipe Juaristi

Joanden larunbatean, **ahaide** , adixkide eta herritar ainitzek lagundu dugu azken egoitzarat. Herria

Ez zen gu bizi garen herrian jaioa, baina hemen zituen **ahaide** gehienak, tartean bere iloba besoetakoa: nire emaztea. Anjel Lertxundi

Moabetik itzulia da Noemi eta salgai jarri du gure **ahaide** Elimeleken soroa. Jose Antonio Mujika

-Mutil honek gure **ahaide** Tobiten antza du, horratik! Jose Antonio Mujika

Hemanen eskuinaldean haren **ahaide** Asaf zegoen. Elizen arteko biblia

Sansonen senide eta **ahaideak** etorri, haren gorpua hartu eta aita Manojen hilobian ehortzi zuten. Jose Antonio Mujika

Elkarren **ahaide** ziren hango Magnani, Papi, Vanucci, Tamburi, Sarpi familiak. Xabier Olarra

Senarrak eta **ahaideak** gogotik ahalegindu ziren bi dama haiek adiskidetzen. Jose Morales

Isakarren senitarte guztietako **ahaideak**, denen errolda kontuan harturik, laurogeita zazpi mila gudari adoretsu ziren. Elizen arteko biblia

Familiaburu hauek, beren **ahaide** guztiekin batera, mila zazpiehun eta hirurogei ziren, gizon adoretsuak Jaunaren etxeko zerbitzuak betetzeko. Elizen arteko biblia

Ahaideen arteko ezkontza debekatzeari dagokionez, oso gauza delikatua da ondo zehaztea noraino iritsi behar duten naturaren legeek, eta non hasi behar duten lege zibilek. Iñaki Iñurrieta

Zatozte! Kendu zeuen **ahaideen** gorpuak santutegi aurretik eta atera kanpalekutik. Elizen arteko biblia

Gaztetan, mirari bat gertatu zitzaion Alexander Waldeni: Tietz eta Warburg-tarrekin **ahaide** zen milionario judu baten alaba, Mathilda Oppenheimer, berarekin maitemindu zen. Koro Navarro

Haren ama, haurride eta **ahaide** guzieri gure dolumin beroenak. Herria

Familiaren, **ahaideen** eta adiskideen negar hipakoak aditu ziren. Itxaro Borda

Nire sorterrira eta **ahaideengana** joango zarela, nire seme Isaakentzat emaztea hautatzera. Elizen arteko biblia

Inork bere aita, anaia, iloba edo beste **ahaideren** bat hiltzen badu, galdu egingo du harengandiko jarauntsia. Iñaki Iñurrieta

Errege-aulkian eseri bezain agudo, Baxaren etxeko guztiak hilarazi zituen; ez zuen utzi bizirik ez gizasemerik, ez **ahaiderik**, ez adiskiderik. Elizen arteko biblia

-Non bizi zen eta zer **ahaide** dituen jakin nahian gabiltza. Fernando Rey

"Bazkari edo afariren bat ematean, ez gonbidatu zeure adiskideak, ez eta senide, **ahaide** edo auzoko aberatsak ere; zeren beraiek ere gonbidatu egingo zintuzkete, eta, horrela, ordaina hartuko zenuke. Elizen arteko biblia

Jakin zuten auzokoek eta **ahaideek** zeinen erruki handia izan zion Jaunak, eta harekin batean poztu ziren. Elizen arteko biblia

Maria Azpilkueta, san Frantzesen ama, bigarren mailan zuen **ahaide** Doktor Nafarrak, nahiz Xabierkoak ez ziren barne Barasoaingo Azpilkuetatarren ingurune hertsian. Piarres Xarriton

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Ni Enrieta Jaurenearen **ahaide** hurbila naiz, hurbilena gainera. Elena Touyarou

Zuetako batek zorrak egin eta lur-sailen bat ezinbestean saltzen badu, haren **ahaide** hurbilenak berreskuratuko du hark saldutakoa, horretarako eskubidea baitu. Elizen arteko biblia

Hurbileko **ahaideren** batena -ama, aita, semea, alaba nahiz anaiarena- izan ezik. Elizen arteko biblia

Aspaldian ukatua didate kanpoko paperik sartzea, **ahaide** zuzenen gutun laburrak baino ez dizkidate onartzen joan deneko hiru urteotan. Koldo Izagirre

Geure familiako **ahaide** urrun bat. Joan Mari Irigoien

Ahaide urrunenek partea zuten irainetan; eta haien kode guztiak horretan oinarritzen dira. Iñaki Iñurrieta

Mundu guztia da Ingalaterrako erreginaren **ahaide** urruntxeagoa edo hurbiltxeagoa. Juan Garzia

Frogatu zenean Egor Timofeievitx Pomerantsev, probintziako gobernu-bulegoko zerbitzuburua, zoratu egin zela, haren **ahaide** txikiek beren artean eta pertsona aberatsen artean dirua bildu eta klinika psikiatriko pribatu batera bidali zuten. Jose Morales

Bai harrigarria alabaina **ahaide** ttipia baizik ez dudan emakume bat nire ama baino gehiago arduratzea nitaz! Jon Muñoz

Espiritu gaizto eta **ahaide** txarren aurka. Pello Zabala

Hark, behin baizik ez zituen ikusiak bere **ahaide** arberaztarrak, Garrüzeko ferian, eta behin ere ez ariatarrak. Aingeru Epaltza

Bidaiarietako batek azaldu zuenez, bahitzaileek gertuko **ahaide** batekin hitz egin zuten telefonoz, eta Poliziak beraien izenak ezagutzen zituela konturatu ziren. Berria - Mundua

Nahiz eta Harryren odoleko **ahaidea** ez izan (Harryren ama izeba Petuniaren ahizpa izan baitzen), hari "izeba" deitzera behartu izan zuten bizitza osoan. Iñaki Mendiguren

Hortik dator juduentzat semeren bat edo gizonezko **ahaideren** bat izateak duen garrantzia -usadio ortodoxoaren arabera, gizonezkoek baino ezin dute otoitz hau esan-, heriotzaren ondoren beraren alde otoitz egin dezan. Koro Navarro

Augustok debekatu egin zien bi sexuetako gazteei ezein gau-zeremoniatan izatea, adineko **ahaideren** batez lagunduta ez bazihoazen. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan)

Ahaide-talde primitiboa comitatus barbaroan desegin ondoren berehala datorcomitatus-aren beraren desegitea mendeko populazio atzerritarraren eskuetan. Iñaki Mendiguren

4 (izenondo gisa)

Susto batean esnatu dira jenio **ahaideak**, egunsentia hurbil zela pentsatu baitute oilarraren kantuarekin eta kandelen argiarekin. Anjel Lertxundi

5 *izond/iz* hizkuntzez mintzatuz, loturaren bat edo jatorri bera duena.

Hizkuntza **ahaideek** desberdintasunak agertu ohi dituzte haien artean, baina badago beste desberdintasun mota bat, erabatekoa dena: **ahaideak** ez diren hizkuntzen artean gertatu ohi dena, hain zuzen. Isabel Arrigain

Hizkuntzalari horien artean, adostasuna dago akitaniera eta euskara **ahaideak** zirela errateko, baita akitaniera euskara zaharra zela. Herria

Sanskritoa, Asiako eta Europako hizkuntza batzuen **ahaidea** dela aurkitzeko meritua, bada, ez dagokio Boppi, baina hura izan zen hizkuntza **ahaideen** arteko erlazioak zientzia autonomo bilaka zitezkela ulertu zuena. Isabel Arrigain

Halako kasu batzuetan, analogia horiei ikuspuntu zientifiko batetik begiratzeari esker esan dezakegu mintzo bi edo gehiago **ahaideak** direla, hau da, jatorri linguistiko bera dutela. Isabel Arrigain

Hizkuntza **ahaideek** desberdintasunak agertu ohi dituzte haien artean, baina badago beste desberdintasun mota bat, erabatekoa dena: **ahaideak** ez diren hizkuntzen artean gertatu ohi dena, hain zuzen. Isabel Arrigain

Jakin behar da, euskararen **ahaideen** ikerketetan modak badirela. Herria

6 irud/hed

1611-ko irailean bost fraile jin ziren beraz Donibanerat, frantsesez *Recollets* deitzen zituztenetarik, frantxixkanoen **ahaide** hurbilak naski. Herria

Ustea, eustea, iriztea, estea, etsitzea: elkarren **ahaide** txit hurbilak dira, eta batzuk, euskarazko jatorriaren aldetik, baita senideak ere. Iñaki Segurola

Afrikako elefantearen **ahaide** urruna dela diote adituek. Berria - Gaiak

Dena den, gurean ezezik, Europako beste lekuetan ere hagitz ezagunak dira leienda honen **ahaidekoak**: [...]. Patziku Perurena

Pieza geldoak dira orokorrean, The blue bezala, aspaldiko Us&them ederraren **ahaidea**, eta euren buruei jiraka hazten dira Gilmourren ohiko crescendo haietan amaitzeko. Berria - Kultura

7 ***ahaide handi*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***6*** *agerraldi)*

Preso gehienek ez dute lagun edo **ahaide handirik** kanpoan, haien bisitatzera etortzeko. ETC-literatura, saiakera

Ahaide handien eta ahaide txikien artean bereiztea, eta **ahaide handiak** hobestea. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***ahaide hurbil***

Kaltetua hila bada eta ordaina jasotzeko **ahaide hurbilekorik** ez badu, kalte-ordaina Jaunari emango zaio apaizaren bidez, errudunaren bekatuaren barkamen-ohikunea egiteko erabiliko den ahariaz gain. Elizen arteko biblia

Aldi berean gara guztiok **ahaide hurbil** eta guztiok desberdin. Juan Garzia

Eta urte betez **ahaide hurbilenek** beren etxeetan edukitzen dute uzta guztietako hasikinak eta erreki opariak eskainiz, eta azkenean hiri inguruan uzten dute zutarri momiaduna". Patziku Perurena

Askazia nonbait ere: alabaina, Espagnolle apezak 1900 urtean Pauen agertu zuen liburu batean frogatu zuenez, euskaraduna denez Lakedemonarren **ahaide hurbiletarik** izan daiteke. Itxaro Borda

Aski litzateke **ahaide hurbilenetako** bat jakinaraztera behartzea, haurraz ardura zedin. Iñaki Iñurrieta

1611-ko irailean bost fraile jin ziren beraz Donibanerat, frantsesez Recollets deitzen zituztenetarik, frantxixkanoen **ahaide hurbilak** naski. Herria

Lolita kantua esate baterako, aspadiko 1999 bizi haren **ahaide hurbila**, azken urteotako onenetarikoa du Princek. Berria - Kultura

-Ni Enrieta Jaurenearen **ahaide hurbila** naiz, hurbilena gainera. Elena Touyarou

Ez zela, gehienetan ohi den bezala, apairurik eskainiko baina familiako eta **ahaide hurbilenek** kafea elkarrekin hartuko genuela, eliza saihetseko ostatuan. Daniel Landart

Martin lehengusua, amonaren aldetik **ahaide hurbilena**, eta amona bera baino zaharragoa. Jon Muñoz

Itsasoko uraren **ahaide hurbila** da odola eta, era batera edo bestera, bizia hasi zen jatorrizko ingurunearen eginkizun guztiak burutzen ditu. Irene Aldasoro

Alta, eta beharbada herio mehatxuaren kontrako arma zen, umorea eta zirto iturri bilakatzen zen edozein solasaldi, izan etxekoekin, izan auzoekin, izan **ahaide hurbil** eta urrunekin, izan azkenik buhameekin. Itxaro Borda

Nahiz **ahaide hurbila** ez naizen, joateko eskaintza egin dut: baina ez naiz bilkura horretan izanen, zeremonia are tristeago batera joan beharrez. Jon Muñoz

9 ***ahaide hurko*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Ikusiko dugunez, zelula prokariotikoak eta eukariotikoak filogenetikoki ezberdinak dira, baina zelula prokariotiko guztiak ere ez dira elkarren **ahaide hurkoak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Inperioaren agintea lortzeko, hainbat amarru eta krudelkeria baliatu behar izan ditut, **ahaide hurko** ia guztiak hil ditut, eta, orain, damututa nago. ETC-literatura, saiakera

Ume benetan atseginak eta zeharo akasgabeak ziren, bere patu urrezkoa finkatua zuten, gizartea zuzentzea alegia, eta horrexetarako jaio ziren, eta **ahaide hurkoek**, munstro txikiaren ikuskizun etsigarria ikusi orduko desertatu egin zuten, alde egin eta ez ziren atzera itzuli. ETC-literatura, saiakera

10 ***ahaide nagusi*** Erdi Aroko Euskal Herrian, leinu baten burua.

Bada, **ahaide nagusiaren** izen onaren ohorez, halako marinel deusez batek ezin zuela huts egin, halaxe begitandu bide zitzaion Basurtoko Joan Sanzi. Edorta Jimenez

Basurtoko etxeko **ahaide nagusiaren** izen ona galtzeaz landa, nire hutsak ekarriko zukeen zigorra ez zatekeen makala izango. Edorta Jimenez

Hiribilduak sortu aurreko garai hartan, eta **ahaide nagusien** borroketan halako garrantzia hartuko zuten dorretxeak eraiki baino lehen, gazteluak omen ziren lurraldearen egitura eta erresumaren batasuna bermatzeko euskarri, eta gazteluetako jaunak agintearen oinarri. Xabier Mendiguren Elizegi

11 ***ahaide txiki*** lehen edo bigarren mailakoa ez dena.

Urte askoan, Anfisa Andreievna **ahaide txiki** zuen kondesa baten etxezaina izan zen. Jose Morales

12 ***ezkon ahaide*** ezkontza bidezko ahaidea.

Azkenaldian // geure nazioko batek -goi-mailakoa jaiotzaz, // ondasun edo **ezkon-ahaiderik** falta ez zuena-, // burua galduta, gizakiak eta lurra utzi // eta, erbesteratze superstiziosoaren gisara, // leku lotsagarria bilatu zuen ezkutatzeko. Iñaki Mendiguren

13 ***urruneko ahaide***

-Urruneko ahaideak. Koro Navarro

14 ***zehar-ahaide***

Hiru oinordeko-mota ezarri zituen, ondorengoak, aurrekoak eta **zehar-ahaideak**, gizonezkoen eta emakumeen artean inolako bereizketarik egin gabe, ez eta emakumeen aldetiko eta gizonezkoen aldetiko ahaideen artean ere, eta horri zegokionez geratzen ziren lege guztiak indargabetu zituen. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahaide bat (11); **ahaide batek** (3); **ahaide baten** (4); **ahaide batzuekin** (3); **ahaide batzuk** (4); **ahaide dugu** (4); **ahaide edo** (5); **ahaide egiten** (3); **ahaide eta** (70); **ahaide eta adiskide** (7); **ahaide eta adiskideak** (5); **ahaide eta lagunek** (3); **ahaide eta lagunen** (3); **ahaide guzieri** (9); **ahaide guzieri gure** (3); **ahaide guztiak** (14); **ahaide guztiek** (3); **ahaide guztiekin** (6); **ahaide guztiekin batera** (3); **ahaide horiek** (3); **ahaide hurbil** (3); **ahaide hurbila** (5); **ahaide urrun** (4); **ahaidea da** (3); **ahaidea ez** (3); **ahaidea zela** (3); **ahaideak elkarteak** (8); **ahaideak ere** (4); **ahaideak eta** (14); **ahaideak etorri** (3); **ahaideak ez** (5); **ahaideak ikusi** (3); **ahaideak ziren** (4); **ainitz ahaide** (6); **alaba eta ahaide** (3); **andre madalenen ahaide** (3); **bere ahaide** (17); **bere ahaide eta** (3); **bere ahaideak** (8); **beren ahaide** (8); **beren ahaide eta** (4); **beren ahaideak** (4); **beste ahaide** (5); **beste ahaideak** (3); **edo ahaide** (3); **elkarren ahaide** (7); **eta ahaide** (32); **eta ahaide guzieri** (8); **eta ahaide guztiak** (7); **eta ahaide guztiekin** (3); **eta ahaideak** (25); **eta ahaideak elkarteak** (3); **eta ahaideak etorri** (3); **gainerako ahaide** (3); **gure ahaide** (13); **haien ahaide** (3); **haien ahaideak** (4); **hainbat ahaide** (4); **haren ahaide** (8); **haren ahaideak** (5); **hizkuntza ahaide** (4); **hurbileko ahaide** (4); **jenio ahaideak** (3); **lagunak eta ahaideak** (3); **madalenen ahaide** (3); **madalenen ahaide eta** (3); **nire ahaide** (6); **nire ahaideak** (5); **seme eta ahaideak** (3); **senide eta ahaideak** (3); **zeure ahaideak eta** (3); **ziren ahaide** (3); **zituen ahaide** (3); **zituzten ahaide** (4); **zituzten ahaide eta** (3); **zuen ahaide** (3)

---

ahaidego *iz* ahaidetasuna.

Erdi Aroko alkimistentzat, zilarrak ilargiarekin zuen **ahaidegoa**, eta plomu-berunak Saturnorekin. Pello Zabala

XVIII. mendean ideia eboluzionista espezieen arteko **ahaidego** baten bidez formulatzen zen. Xabier Arregi

Adiskidantza deseginez gero, ezin iraungo dute ariman ezkontzaren loturek, ez **ahaidegoaren** edota kidegoaren lokarriek, hauetan ere lagunarteko elkarlotura baitago. Imanol Unzurrunzaga

Gramatika konparatzailearen historia egitea zen hizkuntzen seme-alabatasunari eta **ahaidegoari** buruzko aldez aurretiko -Boppen eta Rasken aurretiko- arrastoa berraurkitzea. Xabier Arregi

---

ahaidekia *iz ipar* ahaideen multzoa.

Uzten dituen andrea, hiru alaba eta **ahaidekia** guziari gure doluminak. Herria

Gure doluminak senarrari eta **ahaidekia** guziari eta Jainkoak eman diezola orai Mayi-ri bere zorion osoa. Herria

Gure doluminak uzten dituen haur eta **ahaidekia** guziari! Herria

---

ahaideko *iz* ahaidea.

Arkitektoek ere beren umeak eta **ahaidekoak** bakarrik hezten zituzten, eta beste ikastun batzuk ere bai, baldin eta inolako zalantzarik gabe diru-kopuru handiak beren eskuetan jartzeko bezain zintzoak zirela erakusten bazuten. Santiago Iruretagoiena

Eta **ahaidekoa** hil zela zazpi urte izanagatik ere, igoal segituko dute aldarriok egiten. Patziku Perurena

Izan ere, oinordekotza zela eta, erregeen eta beren **ahaidekoen** artean sekulako deskalabroa baitzegoen. Patziku Perurena

---

ahaidekotasun *iz* ahaidetasuna.

Kananearren artean hedatu ziren aintzinako sinestetan, hezur bidez adierazten zen **ahaidekotasuna**, odol bidez baino lehen. Patziku Perurena

Atzenerako genealogia, **ahaidekotasuna** eta jabetasuna bezalako kontzeptuekiko grinak itoxe duen arte. Patziku Perurena

Ahaidekotasun honek: (txori, arrano) (malo < palo < pola) halako zerbait gogora arazten du, behinik behin. Patziku Perurena

Ba ote du deusen **ahaidekotasunik** *ote* gureak *tojo* < *toxo* zaharrarekin? Patziku Perurena

---

ahaideria *iz* ahaiden multzoa.

Ostatu hartuta, ama eta Adriano, gure aitaren lehengusina baten etxean egon ziren, Bondi andrearen etxean alegia, eta Veratti doktorearekin ez ezik, Margheritarekin elkartzen saiatu ziren, hau da, gure aitaren **ahaideriako** Margherita eta Regina pila hartako batekin. Fernando Rey

---

ahaidetasun 1 *iz* ahaideen arteko lotura.

Asko aldiz, adiskidetasuna **ahaidetasuna** baino estimatuagoa zen. Pablo Sastre

Badago alde ederra sasoi bateko euskara eta pentsaera lotu nahi harekin; edo **ahaidetasuna** adierazteko moduarekin (neba, ahizpa...), edo zergatik hamaika ez den beti "10 1", eta zer den euskarazko halabeharra, edo beharra bera. Iñaki Segurola

Gero gizonak zein zen galdetu zion, eta Tellagorrirekin zuen **ahaidetasunaren** berri jakitean, esan zion: [...]. Koro Navarro

Ahaidetasunaren Asteak agerian utziko du, beraz, Korsikak xenofobiari aurpegi ematen dakiela, eta irudia txartzen dion gutxiengo baten egitate onartezinak gaitzesten dituela. Berria - Mundua

Mika bezain solasturia, aise ematen zien kontesta nire txantxei, ez dakit zerk hartaratuta, Kristinarekiko **ahaidetasunak** edo hemeretzi urte bete berriek ematen duten lotsagabekeriak. Aingeru Epaltza

Gondoleroa nire koinatua da! -gondoleroak hitz hauek berretsi zituen, **ahaidetasunezko** graduari garrantzia kendu nahi zion keinua eginez-. Jon Alonso

Sistema ekonomikoa [...] ekonomikoak ez ziren eragileen arabera antolatzen zen; eragile horien artean, **ahaidetasunezko** harremanak eta erlijioa ziren nagusiak. Koro Navarro

Eta jakizu, aldi berean, ezen gure aita **ahaidetasun** urrun hartaz baliatu zela, hain zuzen ere, bai jaun Marcel gure prezeptore izendatzeko. Joan Mari Irigoien

Berriro sumatu dut **ahaidetasun** mirarizko baten sentipena. Josu Zabaleta

Nik ordea, gure **ahaidetasun** zaharreko *-aba* atzizkiarekin uztartu nahi dut: *ugazaba, asaba, izeba, arreba, neba, loba, auba*. Patziku Perurena

Harrera familiek: Bakarrik bizi diren pertsonak, izatezko bikoteak, senar-emazteak edo **ahaidetasun** loturaren bat duten pertsona taldeak izan daitezke. Berria - Euskal Herria

Nazioartean duen sareari esker - **ahaidetasun** -loturez bilbatua askotan-, oso erraz mobiliza ditzake kapitalak eta oso azkar erantzun eskariaren mugimenduei. Koro Navarro

Arrazakeria atentatuei aurre egin nahi izan dio **Ahaidetasun** Asteak. Berria - Mundua

2 irud/hed

Ikerketa horri esker, era berean, suge espezieen eta musker espezieen **ahaidetasuna** erakusten duen zuhaitz genealogikoa ere osatu dute ikertzaileek. Berria - Gaiak

Hautamenezko **ahaidetasun** bat dagoelako ilustratu zituen Agustin Ibarrolak, eta ez Oteizak edo Oteiza zale batek, Arestiren liburuak. Anjel Lertxundi

Konpainia noblean-ek, *Zorion perfektua*-k ez bezala, *Ifrentzuak* bildumako liburuekin lotura edo **ahaidetasun** zuzena du. Berria - Kultura

3 jatorri bera duten bi gauzaren arteko lotura.

Aditzera ematen dute, batez ere, barruko eta izpirituzko gogoeta, nobletasun handi eta bereziari buruz egina, beronetan baitago Jainkoarekin dugun **ahaidetasun** izpirituzkoa, Jainkoak berak gure arima-zolan ezarria. Joan Mari Lekuona

Gai honek, onen barruan, nahikunde biziak sortzen ditu barnean biltzeko, eta barne-nobletasun gorenean hazteko, Jainkoarekiko **ahaidetasun** estuak eskatzen duen moduan. Joan Mari Lekuona

Ahaidetasuna adierazteko balio duten terminoak, esaterako, ugariak dira, eta garbitasun handiz iritsi dira; termino horiei esker, esan dezakegu familia, indoeuropar herrian, erakunde konplexu bezain erregularra zela, zeren herri horren hizkuntzak, guk ezin adieraz ditzakegun ñabardurak baitzituen. Isabel Arrigain

Izan zitekeen harreman profesionalen bat, aspaldiko adiskidetasuna, edota deituren loturarik gabeko **ahaidetasuna**. Xabier Mendiguren Elizegi

Bi emazte musikariak ohartu dira Bartoken musikak baduela halako **ahaidetasun** bat Euskal Herrikoarekin. Herria

4 jatorri bera duten bi hizkuntzen arteko lotura.

Euskarak beste hizkuntza batzuekin izan ditzakeen **ahaidetasunak** aztertuak zituen, euskal literatura gertutik ezagutzen zuen, mundu zabaleko hizkuntzalaritzan egindako aurrerapenen berri bazuen, eta berak ere bere ekarriak eginak zituen. Koldo Zuazo

Eta euskara? Bigarren taldeko mintzairak bezala, ez da indoeuroparra, bainan ez du horiekin **ahaidetasunik**, ez eta ere, Europako oraingo beste hizkuntzekin. Herria

Uhinen teoriari esker, indoeuropeoaren historiaurrearen ikuskera zuzenagoa atzemango dugu, eta gainera, argibide ugari lortuko ditugu desberdintze mailako fenomeno guztien oinarrizko legeei, eta hizkuntzen arteko **ahaidetasuna** eraentzen duten baldintzei buruz. Isabel Arrigain

Euskararen jatorriaz hitz egitean maiz aipatu izan da hizkuntza honek -nik idazten dudan honexek- georgierarekin dukeen **ahaidetasuna**. Edorta Jimenez

5 (hitz elkartuetan)

Hortaz, hizkuntzen arteko **ahaidetasun** mailak neurtzeko, zorrotz bereizi behar dira aintzakotzat harturiko hizkuntza horiek elkarren ondoko lurraldeetan egotea eta bereiziriko lurraldeetan egotea. Isabel Arrigain

· Oker gaitza litzateke sinestea hizkuntza **ahaidetasunik** izanez gero, odolkidetasuna ere bazegoela hizkuntza ahaide horiek hitz egiten zituzten herrien artean. Isabel Arrigain

Eraikuntza-**ahaidetasuna**, lehenik, zeren, zelula argiratu denetik, organismo bizi oro "klon"tzat jo baita, zelula-koloniatzat. Juan Garzia

Filiazio-**ahaidetasuna**, bigarrenik, hastapenetik oinarritu baita eboluzioaren teoria formen arteko erlazioetan, geruza geologiko bateko edo besteko izatean, enbrioi-garapenen erkaketan. Juan Garzia

6 ***ezkontza ahaidetasun*** *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Bitxikeria gisa, "odolkidetasuna zein **ezkontza-ahaidetasuna** dela-eta 2. gradura arteko senideak zaindu behar dituenak gehienez bi ordu gehiagoko malgutasuna izan dezake". ETC-prentsa

Lekukoek adinez nagusi izan behar dute, jarduteko gaitasun osoa dutenak, eta ezin dute izan aurretiazko borondateen agiria egiten duenarekin ezkontza edo elkartze libre zein izatezko bikote-kidearen bidezko loturarik, ezta bigarren mailako odol- edo **ezkontza-ahaidetasunik** ere, eta ondare-harremanik ere ez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrek ere bere barruan hartzen ditu odolkidetasuna eta **ezkontza-ahaidetasuna**, ezkontzaren eta jaiotzaren ondorengo berehalakoak. ETC-literatura, saiakera

Kontu-hartzaile lanetan aritzea eta Zuzendaritza Kontseiluko kide edo kooperatibako zuzendari izatea bateraezinak dira, eta ezin izanen da kontu-hartzaile izan aipatu kide eta kargu horiekin bigarren maila bitarteko odol- edo **ezkontza-ahaidetasuna** duena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, **ezkontza-ahaidetasunak** ez du eragozpenik sortzen, eta alboko ahaideak adopziozkoak baldin badira, ezkondu ahal izango dira (odolezko loturarik ez duten neba-arrebak, adibidez). ETC-zientzia, zuzenbidea

Langile autonomoarekin normalean, modu pertsonal eta zuzenean, soldatarik gabe lanean aritzen den ezkontidea eta odol-ahaidetasun, **ezkontza-ahaidetasun** edo adopziozko bigarren mailarainoko senideak barnean daude. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahaidetasun bat (3)

arteko ahaidetasuna (3)

ahaidetasunaren astea (3)

---

ahaidetu, ahaide(tu), ahaidetzen **1** ahaide bihurtu.

Ez **ahaidetu** haiekin, zeuen seme-alabak haienekin ezkonduz. Elizen arteko biblia

Gainera, ate txikitik bazen ere, erreginaren senarrarekin **ahaidetzea** kolpe polita izan zitekeen familia osoarendako, egoeraz profitatzen jakinez gero. Aingeru Epaltza

Zibilizazio bat aurreko batekin **ahaidetzeko** prozesua. Iñaki Mendiguren

Babilonikoa, aparteko zibilizaziotzat edo Sumerikoaren luzapentzat har daitekeena, eta Yucatandarra eta Mexikarra, antzeratsu **ahaidetuak** Maien Zibilizazioarekin. Iñaki Mendiguren

Ez denaren kolore eta itxura emanez, azpian dagoena gordetzeko xedea duen arte oro bezala: alderdi horretatik, kosmetikarekin eta apainketarekin **ahaideturik** dago, horiek ere gurea bezain arte anbiguoak baitira eta ia hura bezain zaharrak. Juan Garzia

2 irud/hed

Gogoeta hauek neure baitan eginez ulertu nuen jakinduriarekin **ahaidetzeak** hilezkortasuna dakarrela. Elizen arteko biblia

Txertaturik dago jada gure atomoa: egitura baten parte da, arkitektoek hitz horri ematen dioten zentzuan; bost lagunekin **ahaidetu** eta elkarlotu da, eta hain dira beraren berdin lagunok, ezen ipuinaren fikzioak baino ez baitit uzten hura bereizten. Juan Garzia

3 (era burutua izenondo gisa)

Judu-errabino baten hil osteko garaipena -haren jarraitzaileek, jentilen erara, giza ama baten bidez jainko-semetzat onartua- Dionisos eta Herakles bezalako kondairazko "erdijainko" **ahaidetuen** lehenagoko garaipenen maila bereko balentria pagano bat zen. Iñaki Mendiguren

Gutxiengo menderatzaile, barne-proletalgo eta kanpo-proletalgo baten zenbait gizarte-emaitza bereizgarri zirela, hiru horietan zatitzen zelarik gizarte **"ahaidetua"** bere desintegrazioaren bidean. Iñaki Mendiguren

---

ahaika *iz* probokazioa.

Gertakari larri honek eta Nicolas Sarkozy Barne ministroak adierazitako **ahaika** hitzek jazarraldi zabal bat eragin zuten, gazte taldeek segurtasun indarrei, erakinei eta ibilgailuei oldar egin zietelarik. Berria - Mundua

---

ahaire *iz* doinua, melodia.

Doinu eta **ahaireetarako** dohaina. Berria - Kultura

Berak irakatsi zigun orain patioan hain sarri abesten dugun Xiberuko **ahaire** delizius hau ere: [...]. Koldo Izagirre

Bitartean, nire atzean, eta segur aski ispiluaren aurrean, nire bihotzeko idoloa kantuz ari zen, marmarian, txioka, modako **ahaireak** txistuka haizatzen. Matías Múgica

Jackek eta Algernonek britainiar opera bateko **ahaire** ospetsu bezain izugarri bat txistukatzen dute. Antton Olano

Gure kantu nazionalen eta gure antzinako **ahaireen** naufragio handi hau eragozteko deliberatu gara argitalpen honen ateratzera, zernahiko zailtasunak ukan arren. Berria - Kultura

Guk han jarduten genuen O'Neill-en edo Thortnton Wilder-en dramak eztabaidatzen, Grigne mendiak eskalatzen, batzuak besteez maitemintzen, joko intelektualak asmatzen eta Silviok Vaud aldean zituen lagun batzuengandik ikasitako **ahaire** ezinago ederrak kantatzen. Juan Garzia

Züberoako herri kantorea biziberritü da azken urte horietan, kantari gazte andana plantatü beita, kantore berriak -hitzez eta **ahairez** - hontzez. Herria

---

ahakar *(orobat **akar** g.er.)* **1** *iz* liskarra, aharra, errieta.

Askatu ezin genituenak esan eta besteoi hizketan utzirik burua baiezkoan edo ezezkoan mugituz bideratzen zuen **ahakarra** berak nahi zuen kalarantz, ontzi baten kuberta inoiz zapaldu izan gabe mundua guk baino hobeto ezagutzen duen kapitain horrek. Koldo Izagirre

Eta, ondoren, berriro bere **ahakarra**: ez dituela ehun alaba, bat bakarra baizik (banekien, noski), eta bere alabak bizitza bakarra zuela (hori ere bai, noskiago) gizaki orok bezala. Joxe Austin Arrieta

Ez zuen, ordea, deus esan, ez zuen-eta betiko **ahakarrekin** hasi nahi. Anjel Lertxundi

Ez zaukanat hire **ahakarrik** zertan entzun! -eta alabari deus erantzuteko astirik eman gabe, kalesatik jaitsi zen. Anjel Lertxundi

Bospasei zerri zetozen herritik hondartzara, beste hainbeste mutil-koskor, oihu eta **ahakar**, atzetik zituztela. Anjel Lertxundi

Are harrigarriagoa haren mintza-doinua, eztia izaki aspaldiko partez, elkarrekiko lehen urteetan berandu etxeratzen nintzenean bere **ahakarrak** xamurtzeko ohi zuen kadentzia goxo berekoa. Aingeru Epaltza

Nagusien arteko harremanak ez dira beti onak izaiten, eta hala nahi izaiten ditu bakoitzak bere alde eta fabore, beren arteko **ahakarren** eta liskarren orduan, armarik onenak, zeren giristinoen arteko gudurik handienak eta gogorrenak ez baitira kastitatearen guduak, nola batzuek sinestarazi nahi baitigute, baina poltsikoarenak eta diruaren ingurukoak. Joan Mari Irigoien

Ezein **ahakar** baino lazgarriagoa zuen begirada. Anjel Lertxundi

Ziur naiz **ahakar** gorria emango diola. Juan Garzia

Handik egun batzuetara, berriz, ezkontide arteko **ahakar** sutsu horietariko batean ziharduten Zeusek eta Herak, jainko senarraren desleialtasunak zirela haserre-hizpide. Juan Garzia

Jende honek galdetzen zion Jaunari, **ahakarrez** galdetu ere, zergatik beronen ikasleek gordetzen ez zituzten zaharrek erakutsitako ohiturak eta jaten hasten ziren eskuak garbitu gabe. Joan Mari Lekuona

2 ***ahakarrean*** *adlag* liskarrean, errietan.

Eta kontzientzian liskarrean eta **ahakarrean** noiznahi-den pizten eta itzartzen zitzaizkidan boz haietarik zeini egin behar ote nion kasu...? Joan Mari Irigoien

Dado-jokoaren gorabeherak zirela kausa, **ahakarrean** ari ziren bortz zaldunak arestian, otsoak eta orak iduri. Joan Mari Irigoien

Plazaren bertze muturrean, Larrea, gerezi ondu bat bezain gorriturik, **ahakarrean** denei: [...]. Aingeru Epaltza

3 ***ahakar egin*** errieta egin.

- **ahakar egin** zion agureak, eta eginahalak eta bi egin zituen oinetakoak bost sos haiekin ordaintzeko. Anjel Lertxundi

-Ez daukagu jende honen ohiko bizitza xaloa zertan bihurritu, Mathilde - **ahakar egin** zion Willemek, hark ere nederlanderaz. Anjel Lertxundi

Atzera egin eta isiltzekotan egon zen, izua baitzion aitaren begirada hari, baina, adorea harturik, **ahakar egin** zion: [...]. Anjel Lertxundi

Aspaldi horretan ohi zuen gidoiari jarraikiz, papera hartu, behako mesfidati bat egin eta, haren edukiaren garrantziaz jabetuta, Eskalatzaileak **ahakar egiteko** gogoa behin-behinekoz irentsi beharko zuen, nekarkion albistearen azaleko alderdiak eztabaidatzera lerratzeko: [...]. Aingeru Epaltza

Zeren, medikuari adio egin bezain fite, eneganat etorri eta, bere semeari **ahakar egiterat** zihoakion ama batek bezala, fermu eta fintko, baina baita gozo eta emaro ere, erran baitzidan, euskaraz-: [...]. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahakar egin zion** (6)

---

ahakarka *adlag* ahakar eginez.

Oraindik ere Pizurrin, Hetrepel, Ahohandi eta Ziliporta, aldiz kitzika, aldiz **ahakarka**. Jose Angel Irigaray

ahakartu, ahakar(tu), ahakartzen da *ad* ahakar egin; haserretu.

Ezin izan zuela bere hitza bete, zeren, dukea azken urratsa emaiteko puntuan zenean, **ahakartu** baitzen aldi batez, bertze kontu batzuengatik, erregeren balidoarekin, zeinak ukatu baitzizkion, hartaraz gero, zor zizkion fabore, garazia eta abantail guztiak, aitaren markes titulua tartean. Joan Mari Irigoien

Emmanuel **ahakartzen** zitzaion lehen aldia zen hura. Joan Mari Irigoien

Diru honek zer du txarrik? -**ahakartu** zitzaion Noraren aita-. Anjel Lertxundi

Eta, nola hura gizon ezin seriosagoa baitzen, **ahakartu** zitzaidan eta kontrakarrean jarri, arrazoin osoz, baina alferrik. Joan Mari Irigoien

Suak harturik, anaiarekin liskartu, **ahakartu**, eta ukabilka eta ukondoka hasi nintzen haren aurka. Joan Mari Irigoien

---

ahakoka *adlag* barre algaraka.

Putinga, Rasputinga eta Larraputinga izurrite osoa, **ahakoka** eta ziztaka, dantzan Zamaltzain, Ziripot eta Miel Otxin eta ezporedantzariak [...]. Jose Angel Irigaray

---

ahal[1] **1** *iz* ahalmena; indarra.

Banan-banan, Artemisen **ahalari** eskainiriko urrezko xaflak lauzen gaineko beren eusguneetatik eroriz joan ziren, metalezko durundiz. Juan Garzia

Mutakallim-n-en izkribuak ikertu eta gero, hartarako erraztasunak nituen neurrian, filosofoen idazlanak ere ikertu ditudan bezala, neure **ahalaren** arabera. Xabier Kintana

Zeren gizakien jainkoekiko erlazioa **ahalaren** mailan baitzen, hain zuzen, inferioritatezkoa. Xabier Amuriza

2004ko udazkeneko egunen batean eta Nazio Batuen Erakundea deritzanaren bileran, Brasilpeko lurraldean multinazional ustiatzaileren batek -ia beste inork ez bezalako eskubide kolektiboen eta beren buruak eta beste askorenak determinatzeko **ahalaren** jabe diren horietako batek- mehatxaturik dauzkan lurretan jaioa den emakume "indigena kaingang" bati honela bota zion dotrina ofiziala ongi ikasitako Erresuma Batuko diplomatiko batek: [...]. Iñaki Segurola

Beraz, bikainei zilegiago zaie sorkariaz zin egitea erkinei baino; zeren bikainek adimenduaren sarritako kontenplatzeagatik eta argitasunagatik gehiago gogoratzen, hausnartzen eta kontenplatzen baitute Jainko gure Jauna dagoela sorkari bakoitzean bere izate berberaz, bere egotez eta **ahalaz**. Patxi Altuna

Eta uretara limur baleza berori, jauna?, edo bere oinarritik itsasorantz konkortzen den harkaitz-labarraren gailur ikaragarrira, eta, han beste itxura ikaragarri bat harturik, arrazoimenaren indar eta **ahalaz** gabetu, eta eromenera eraman berori? Juan Garzia

"Asaba zaharren baratza"k, aldiz, ezustean, adimenaren **ahalaz** nolabaiteko askatasuna erdiesteko aukera erakusten digu, gorputzak, irudimenak eta afektuek eragindako morrontzaz nolabait askatzekoa. Markos Zapiain

Bere artearen **ahalaz** horditurik, tinkotasunez segitu zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

-Musikariaren gorputzak ezin eta haren arima dugu jotzaile -esan zuen Hebert sarjentuak, bretoia bera, gorputzaren **ahalaz** haratagoko kontuei emana-. ondorioz, ez baldin bada nehongo erlaziorik nahimenaren eta mugimenduaren artean, ez da ere Izpirituaren eta Gorputzaren **ahalen** edo indarren neholako parekatzerik izanen, eta, beraz, azken honen indarrek ez ditzakete neholaz ere haren indarrak determina. Felipe Juaristi

Familian hazia izan nintzen eran etorkizuna librea nuen, nahi nuena egin nezakeen, ene **ahalen** arabera. Ana Urkiza

Ororen gain Jainkotasuna, gure **ahalen** arabera, ulertarazten duten dogma arrazional batzuen bidez besterik ezin lor daitekeena. Xabier Kintana

Pilotari gaixoak gutietsi gabe haatik, hauk gogotik ari baitira, beren **ahalekin**. Herria

Trebantzia haundiko pilotaria da azkaindarra, dituen **ahalekin**, eta esperientzia luzea duena. Herria

Alabaina, holako **ahalekin**, eta gainerat nahikeria bat araberakoa delarik. Herria

Lau pilotariak besoz eta **ahalez** elgarren bete, nahikeriaz ere berdin, jende hura guzia (gutixago hastean baina gero-ta-lodiago kalerietan) gustatua atxiki dute bi oren laurden bat eskasez, pario oihu batzuekin artetan baina errepostu gutiago, gaina hartzen baitzuten maiz irabazleek. Herria

Kontaeran hamaika **ahalez** jantzita azalduko da, eta magikoa dela adieraziko zaigu, hots, kausalitate arrunta hausteko gauza. Bernardo Atxaga

Bat-batean egoera okertu zitzaion, diru-**ahalez** haraindiko etxea eraikiarazi zuenean herriko tokirik garestienean. Itxaro Borda

Presa izaten ditek, gutiena ordaindu nahi ditek **ahalez** atrakea, eta ontzia lehenbailehen deskargatzeko makinista saiatuak hobe. Koldo Izagirre

Nik, Fulgor Sedanok, 54 urteko gizona, ezkongabea, lanbidez administratzailea, auziak abiarazi eta jarraitzeko gai, **ahalez** eta neure zuzenbidez, honako eskabide-azalpen hauek egiten ditut... Juan Garzia

2 *ahal adina*

Pozaldian dagoenean egin beza ahalegina umiltzen eta **ahal adina** eraisten, pentsatuz zein gauza gutxirako den lehorraldi garaian, graziarik eta pozaldirik gabe gelditzean. Patxi Altuna

Aurrena dokumentazioan jarri zuen interesa, eta detektibe gisa ibili zen arkitekto elkarteko artxiboetan lortu **ahal adina** proiektu, plano, memoria eta etxearen garaiko aldizkari zahar biltzen. Sinkroniaren aitzakian, lan diakronikoetatik jakina zenari ez zaio **ahal adina** etekinik atera. Patxi Iturritegi

Aurreratu zuen ba **ahal adina** bere kokotsa eta laster ziren, urontzia hura zeriola eta andereñoa xaboibilez kokots bizarrari eraginka. Patxi Ezkiaga

Min dut, min **ahal-adina**, aurten herri honetan ezkurrik ez bildua. Patxi Ezkiaga

· Eta nik, anai Frantziskok, zuen morroi txiki-txiki honek, **ahal** dudan **adina** baiesten dizuet barrutik eta kanpotik bedeinkapen txit santu hau. Askoren artean

3 *ahal adinako* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Bi aldeek "**ahal adinako** elkarlana" egiteko erabakia hartu zutela esan zuen Suediako lehen ministroak. ETC-prentsa

Herria nekaturik zegoen, bai, gari faltaz, baina printzeak ez zeukan inolako errurik; areago, lurren antzutasuna eta itsasoaren laztasuna erremediatu nahi izan zituen, **ahal adinako** gastuz eta arretaz. ETC-literatura, saiakera

Eginahalak egin zituen askatzeko, **ahal adinako** garrasiak egiten saiatu zen, are ahoa tapatzen zion gizonari hozka egin zion, baina indarrik gabe gelditu zen, mugitu ezin zela jarri baitzuten estu lotuta. ETC-literatura, saiakera

Haren soinean irristatuz jaitsi da bigarren astunena, Xan, orkatiletako zapietatik **ahal adinako** kemenez itsatsi zaiolarik. ETC-literatura, saiakera

4 *ahal bada*

Ahal bezain laster egizu zerrenda bat, bortxatutako kutxa guztiena, jabeekin harremanetan jarri, telefonoz **ahal bada**, eta bestela bidali telegramak etortzeko esanez. Xabier Olarra

Guziek elkar atxik dezagun, neholere **ahal bada** Piarres Xarriton

Alaba, esan, **ahal bada** behintzat: / zer duzu Peter Panentzat? Julen Gabiria

- Esango al diguzu, jauna, nora egin dezakegun ibilaldi laburtxo bat, erraza, eta polita, **ahal bada**; eta barka, arren, nire ausardia. Josu Zabaleta

Ene Aita, **ahal bada**, urrun ezazu niregandik edari samin hau. Elizen arteko biblia

Espainiako telebistetan aspalditxotik darabilten teknika da, ustez emaitza onekin, hasierako sumarioan, hogei minutu geroago osorik, eta **ahal bada** kamera geldituz, emango dizkizuten irudi ikusgarriak iragartzea. Iñigo Aranbarri

Ahal bada ezer ez ukitu. Harkaitz Cano

Beraz, Mithrandirren borondate onak hiri honetan nolabaiteko balioa badu, Itzalaster ohore guztiekin tratatuko duzue: hobbit honekiko azaldu zareten bezain adeitsu, edo areago, **ahal bada**. Agustin Otsoa

Erramun libre utzi dutenean, inguruko herrietako ezagun konfiantzazkoei deitzen hasi gara, **ahal bada** bulego eta tailerretako telefonoetatik. Anjel Lertxundi

-Ikusi egin nahiko nuke, **ahal bada**. Xabier Mendiguren Elizegi

Asegurukoak deitu du, eta argazki batzuk ateratzea komenigarria izango dela esan dit, euria egin aurretik eta ondoren **ahal bada**, froga zehatzagoak izan ditzagun. Joxemari Urteaga

Azukre poltsatxoari begiratu zenion eta zalantza une baten ostean poltsikoan sartu zenuen, enkontruaren lekuko bezala, segur aski, fetitxea; memoriaren tranpak saihesteko,

ahal bada , esango zenuen. Lander Garro

Gehi itzazue zerga horiek, eta gera itzazue esku hilak, **ahal bada** . Iñaki Iñurrieta

2.Bada oinarrizko lege bat, hau dioena: **ahal bada** , bakea bilatu behar da; bestela, defentsa bilatu behar da. Esteban Antxustegi

Bere punteria hobetzeko laserdun puntu gorriko bisorea eskatu zidak, **ahal bada** Swarovski markakoa! Pako Aristi

Azeituna batzuekin, **ahal bada"** . Bernardo Atxaga

Idazle eta artista batentzako, inportanteena, garaikoa izatea da eta, **ahal bada** , biharko intuizioetan sartua izatea. Ana Urkiza

-Ahal bada , atsegin handiz! - erantzun diot. Pako Aristi

5 *ahal baino*

Edonola ere, eguzki indarra **ahal baino** askoz gutxiago erabiltzen da. Berria - Harian

Ahal baino lagun gehiago bildu dugu eta orain ez dakigu zer egin haiekin. Xabier Montoia

Esan zion, alegia, jende pila mordoa zihoakiola karitate eske, eta lepoa emango zukeela Big Lanniek, behinik behin, ondotxo zekiela berak beti ahal zuen guztien egiten zuela; egia esateko, **ahal baino** askoz gehiago. Mirentxu Larrañaga

"Maiteagoa nire bihotzak **ahal baino** gehiago, oi Zu! Xabier Olarra

Baionarat buruz berriz zihoalarik bizkitartean, nahiz mundua sekulan baino beltzagoa zeukan eta jasan **ahal baino** gehiagokoa bere barneko ilundura samina, bere baitan egin zuen ez zuela deus gisaz hiltzerat utzi behar amaren musuak egun hartan piztua zion argitxo eztia. Janbattitt Dirassar

Bazen jende Uharteko elizan, Kaiet Deindarenen ehortz aratsaldean, ortzirale huntan: elizan koka **ahal baino** gehiago. Herria

Oinaze handiak jasaten zituenez, nahi eta **ahal baino** diru gehiago xahutu zuen medikutan osasuna berreskuratzeko, eta zorrei aurre egin ezinik aurkitu zen. Askoren artean

Nire ezpainek egun osoan emango dute zure salbamen-asmo eta ekintzen berri, nik kontatu **ahal baino** gehiago diren arren. Elizen arteko biblia

6 *ahal beste*

Orobat jakin dut auzibidea **ahal beste** korapilatzeko asmo ezkutua dagoela, auzia ohiko lege-bideetatik epai dadin eragozteko. Jose Morales

Oro har kontu handiz eta urrikalkor mintzatu zaigu, **ahal beste** saihestuz "lan eremu" hitza. Urtzi Urrutikoetxea

Zuek eutsi goiari ahal duzuen bitartean eta **ahal beste** luzatu bizimodu hau. Jon Arretxe

-Ahal beste , baina ez nahi adina. Joxemari Urteaga

Eta **ahal beste** lo egiten saiatu zen. Jose Morales

Ez dute ezta bi segundoz pentsatzen **ahal beste** herririk eta ez eskualderik badela hemen. Berria - Kultura

Iruditzen zait, artista lanean ari denean, ez dela egoten **ahal beste** ezertan. Hasier Etxeberria

f. Erreferentziak, **ahal beste** , testu nagusitik kendu. Askoren artean

-Ez da ezer -hala ere, batera eta bestera begiratzen hasi zen, **ahal besteko** disimuluz. Fernando Morillo

7 *ahal bezain*

Orduan, Lisiasek harmailara igo eta **ahal bezain** ongi defendatu zuen hitzarmena; irabazi zuen herriaren oniritzia, jendea baretu eta berauen onginahia bereganatu zuen. Gero, Antiokiara joan zen. Halaxe gertatu ziren erregearen gudu-irtenaldia eta atzeraldia. Elizen arteko biblia

Libre izan nuen lehenbiziko igandean, hantxe jarri nintzen, zalantza bizian, erantzun **ahal bezain** zintzo, orekatu eta duin bat atontzera. Juan Garzia

Ahal bezain geldi, ohe arraboskariak sala ez nintzan, Edurnek ateratzen zituen soinuen pentagrama irakurri nuen nire belarrien partituran. Aingeru Epaltza

Hauek guztiauengatik harat-honat nabil eta jirabiraka hegan dagit eta **ahal bezain** barrena sartzen naiz helmugarik inon aurkitzen ez badut ere. Imanol Unzurrunzaga

Artean ez nekien Portugaleteko gau eskoletan euskara irakasle bihurtuko nintzela, baina prest nengoen Rosak zabaldutako bidetik **ahal bezain** urrun joateko. Bernardo Atxaga

Hiriko apez eta serora eskola hoberenetan ezarri genuen, amamatik **ahal bezain** urrun... Itxaro Borda

Horiek **ahal bezain** zorrotz epaitu behar dira, erantzunkizun penalak eskatu behar dizkiegu. Berria - Euskal Herria

Egunez egun biltzarrera jin ginen, **ahal bezain** beroki beztiturik, elurrean eta haize hormatuan beha, eta manurik ez heldu. Marzel Etxehandi

Banuen adixkide bat; ez zituen bidaiak maite, eta bere inguruan denak... **ahal bezain** urrun oporretan... Menane Oxandabaratz

8 *ahal bezain laster/pronto/agudo/azkar*

Arbelbidek baia ardietsi. 1886 hondarrean jakinarazi zien 40.000 libera ematen zizkiela eskola hori sortzeko **ahal bezain** laster. Xipri Arbelbide

Eta nahiz eta **ahal bezain** azkar atera, Lepic andrea hurbiltzean, beranduegi izaten da beti. Itziar Otegi

-Har ezazü plana eta **ahal bezain** laster atzaman ezagüzü izozki saltoki hori! Itxaro Borda

Zorrak kitatzeko plan bat osatuko da horrekin batera, etxebizitzaren alokairua **ahal bezain** laster ordaintzea bideratzeko. Berria - Euskal Herria

Eta orain **ahal bezain** azkar kontatuko dizut amaiera. Mikel Hernandez Abaitua

-Nahi baino beranduago, baina **ahal bezain** pronto. - Alegia, baietz. Arantxa Iturbe

Ahal bezain laster egizu zerrenda bat, bortxatutako kutxa guztiena, jabeekin harremanetan jarri, telefonoz ahal bada, eta bestela bidali telegramak etortzeko esanez. Xabier Olarra

Eta **ahal bezain** pronto lasterka joaten zen zirkora, haurrak eramateko aitzakian. Fernando Rey

Saia zaitez, **ahal bezain** laster, bizimodu normala egiten. Jon Muñoz

Ahal bezain agudo utziko dut lantoki hau". Iñaki Zabaleta

Terrorismo itsuarekin eta heroi zein martiri sistemarekin bukatzekoa da **ahal bezain** laster, politikoki salbatzen ahal dena salbatzearren. Itxaro Borda

9 *ahal bezainbat*

Oroz gainetik elgarrekin aholku edo kontseilu beharrezkoak zituzten trukatzen etxaldeari **ahal bezainbat** emanarazi beharrez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Saget andereñoak entzun egin zien, garra begian, eta haien atzetik abiatu zen arineketan, bere hanka txikiak **ahal bezainbat** luzatuz. Karlos Zabala

Ahal bezainbat kaparen lepokia esku batez goiti atxikitzen du, bisaia erakutsi nahi ez balu bezala. Michel Oronoz

Dominique eta biek **ahal bezainbat** laguntza ekartzen zuten baserrian: egur puskatzen, belar mozten, eta ondotik belar garraioan, eta unaturik oheratzen ziren. Elena Touyarou

Baldintza horietan, jokoen eskaintza beti **ahal bezainbat** atxikitzea beharrezkoa da. Ramuntxo Etxeberri

Urratsa **ahal bezainbat** luzatuz, frango laster heldu nintzen Magaliren etxerat. Janbattitt Dirassar

Guraso batzuek hauts kolorezko ume malestrukak **ahal bezainbat** zaintzen zituzten beren sabelen beroan. Aurelia Arkotxa

Ezer inporta izan bazait nire aro eta giroarekiko lan guztietan, baserritar, laborari eta artzainei **ahal bezainbat** laguntzea izan da: hori konstante iraunkorra izan dudala hogei urtean, hala aitor nezake diodana diodala jakinaren gainean. Pello Zabala

10 *ahal bezainbatean*

Ezker abertzalekoek osoago iraun zuten, **ahal bezainbatean** , haien erorketek betiere zati bati baino ez baitzioten eragiten, borroka armatuaren alde zeudelarik segurtasun-neurri zorrotzagoak erabiltzen zituzten eta. Juan Kruz Igerabide

Horretan beraz behar dugu lehiatu, hots, gure afektu bakoitza modu argi eta egokian, **ahal bezainbatean** , ezagut dezagun eta, horrela, gure Izpiritua afektu bakoitzak ekar dezan modu argi eta berezian hautematen dituenei eta gozo osoa ematen diotenei pentsatzera. Piarres Xarriton

Izan ere, beste edonorenaren pare jartzen zuten hitz haiek bere bizia, gizaki ororen ardura izaki, azken batean, bizia ken liezaiokeen edozer ere kontrolpean edukitzea, saihestezinari, **ahal bezainbatean** , iskintxo egitea. Imanol Zurutuza

11 *ahal bezainbateko*

Bars eta Ektor aurrean jarri zitzaizkion, ordea, eta ez zioten utzi **ahal bezainbateko** triskantzarik egiten; gainera, Lancelotek odol asko galdua zuen zauritik, eta ahuldade

pixka bat sentitzen zuen. Juan Kruz Igerabide

Eguraldiaren eguneroko eta ordu oroko gurpilean, aroaren hegada pinpilinpauxa xotil intseguru baten antzekoan, badakizue, hor izango gaituzue egurats guztiekin maiteminduta garen emakume eta gizaseme euskaldun hainbat, **ahal bezainbateko** zerbitzu apala eta ongi neurtua emateko pronto. Pello Zabala

12 *ahal bezainbeste*

Erabakitzen dut hobeto ezagutu behar dudala, **ahal bezainbeste** denbora eman behar dudala haren ondoan. Oskar Arana

Abiadura Eztiaren Denbora **ahal bezainbeste** luzaraztea. Hasier Etxeberria

Eta, prest daudenean, epistemearen eremuan murgilduz, hau da, egiazko zientziaren eremuan, Izate absolutura **ahal bezainbeste** hurbildurik. Askoren artean

Ahal bezainbeste jokatzea da nire helburua, pixkanaka taldean tokia egin ahal izateko. Berria - Kirola

Eta ondoren, autobus geltokian, konkistatu berri zuten konplizitate horretatik besteak **ahal bezainbeste** urrundu lagun-minari belarrira hitz eginez, gainontzekoen begirada bekaitza ere plazer. Eider Rodriguez

Ahal bezainbeste ordaintzen diot Jeani. Eskarne Mujika

13 *ahal bezala*

Ahal bezala saiatzen ari naiz zuei kontatzen, urruneko garai haietako zirkulazioaren hotsa egiten duen idazmakina honi aurrera egiten uzten. Fernando Rey

Lagunarekin **ahal bezala** bizpahiru hitz trukatu elgarren berri emanez, eta gure solasa ez ginuen sobera luzatu ahal izan. Filipe Bidart

Ahal bezala eta estropezu eginez lortu zuen leihoraino heltzea. Xabier Montoia

Gure lagunak doi-doia ikusten ditugu eta **ahal bezala**, xokoleta, bixkotxak eta zigarretak helarazten dauzkigute. Michel Oronoz

Dena den, geratzen dena **ahal bezala** pasa, etxera joan eta Vuelta prestatzen hasi beharra daukagu», aipatu zuen nafarrak. Berria - Kirola

Onartu behar da drogak gizartean daudela, beti egon direla; bitartekoak dira, jendeak nahi edo **ahal bezala** kudeatzeko. Berria - Euskal Herria

Abadetxoa, aho-zabalik jarraitu ondoren Pepponeren ekintza, zurbildu eta bere sermoitxoa **ahal bezala** tetelkatuz, aldarera itzuli zen meza bukatzeko. Koldo Biguri

Nerabezarotik ordu arte karreatua nuen **ahal bezala** garbitasunaren zama. Piarres Aintziart

Otordu eta apairuak, **ahal bezala** berek egin eta berek jan. Jokin Urain

Holohan jaunak onartu zuen artistak ez zirela onak, baina batzordeak, esan zuen, lehen hiru kontzertuak **ahal bezala** egitea erabaki zuen, eta antzetsuak larunbat gauerako uztea. Irene Aldasoro

Ahal bezala jarri da zutik, eta berriro lotu zaio lehengo boxeo kolpeen dantza barregarriari. Paddy Rekalde

Igortzen dizut; hor ikusiko duzu ematen didala, moldakaizkeriari **ahal bezala** itzuriz, berari izkiriatzeko baimena: partitzera premiatzen nau ordea, eta uste dut partitzetik ezin sobera gibela nintekeela neure buruari kalterik egin gabe. Jon Muñoz

- Justifikatu gabeko balio-judizioak **ahal bezala** ekidin behar dira. Askoren artean

Orgatila baten gainera botatzen ditu gorputzak, **ahal bezala**. Oskar Arana

Petrolioaren prezio garestiari "bakoitzak **ahal bezala** aurre egin» beharko diola azaldu zuen, "prezioak garestituz, esaterako». Berria - Ekonomia

14 *ahal den*

Eta gaua horrela datorrenean, ezagutzera ematen dizkigu tren astun horiek, urteekin gero eta gehiago, eta haien zama, norberak bere baitan, eraman beharra dago, **ahal den** aurpegirik onena erakutsiz geltokietan dauden bidaiari galduei. Pako Aristi

Ahal den moduan ibili behar. Gotzon Garate

Sindikatuek, **ahal den heinean**, aparteko orduak desagertzea eskatu zuten Berria - Ekonomia

" **Ahal den heinean** proiektu ezberdinak dituen taldea sortu nahi genuke, jarraipena duena» Berria - Kultura

-Ea, har itzazue papera eta boligrafoa, eta idatzi narrazio txiki bat, non, bi intsektu desberdin eredutzat hartuz, **ahal den** ongien adierazi behar duzuen zertan den bizitza; betiere, lehiaren ikuspegitik hartua. Josetxo Azkona

-Ahal den azkarrena. Koro Navarro

Kategoriek apriorizko adigai eratorrien kopuru handia eskuratzen dute sentimen hutsaren modi-ei lotuz eta elkarren artean lotuz gero, eta adigai hauek oharraraztea eta **ahal den heinean** beren osotasunean zerrendatzea onuragarria den eta ezatsegina ez den ahalegina litzateke, hemen, ordea, utzigarria dena. Ibon Uribarri

Sentimendu hori **ahal den** zehatzen deskribatzeko, nire inozentzia garaian, sokaz adabatutako, begiak zerusaz zabal-zabalik zituzten gizon horien, barregarri horien aurrean oraindik birjin diren mutilek nik haiez nuen irudi grafiko gaingirozkoaren arabera zirrimargotutako prostituta batekin topo egitean senti zezaketen izuikara bertutetsu bera sentitzen nuen. Josu Zabaleta

Legeari eta ordenari helduko diegu **ahal den** bitartean, baina kanoika ibiltzeko ere prest gaude! Koldo Biguri

Eta hori ere **ahal den** moduan, guk diputatu bat lortuz gero, ur tanta bat izango da-eta Madrilgo itsaso zakarrean. Berria - Euskal Herria

Beharbada euskal kulturak bere adar guziekin nolakoa izan beharko lukeen gaurko mendean, euskal hizkuntza segurik **ahal den** toki guzietarat zabalduz. Herria

Larunbat gauerdia pasa, eta, handik bi ordura, ea antzematen diozun ongi eta **ahal den** klaroen zein haize dabilen. Pello Zabala

Askotan etzaten da horrela, isil isilik, berarengandik **ahal den** urrutiena. Jokin Muñoz

Bizitzari **ahal den** zuku guztia atera arteko onik izaten ez duen jendilaje mota hori erakartzen zuen Parisek, horra, baina ni ez nengoen zaku hartan. Anjel Lertxundi

Guk, gehien-gehienean, errimatu egiten dugu, eta gero, **ahal dena** esan. Andoni Egaña

Ahal den guztia, **ahal den** leku guztietan. Hasier Etxeberria

Jendeak simaurra botatzen ziek **ahal den** guztietan. Bernardo Atxaga

Saia zaitez irakaslearekin **ahal den** guztia aldez aurretik argitzen. Askoren artean

15 *ahal den neurrian*

Esaten digutenez, heterosexualitatearen prozesua oso konplexua da, eta, askotan, ez da ondo amaitzen, "desbideratze" batzuk izaten dira, eta horiek "zuzentzen lagundu" behar da, **ahal den neurrian**. Luis Elberdin

Unibertsitateen estatutuez eta autonomia legeez baliatu beharko ginateke, **ahal den** neurrian gauzak beste era batera bideratzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Halako gabezi urteak tokatu gabe ere, baserrikoa biziraupeneko kultura da izatez, autarkikoa, **ahal den neurrian** autosufizientziara jotzen saiatzen dena. Xabier Mendiguren Elizegi

-Etiopiar "arraijaleek", hildakoen gorpua ihartu ondoan, guztia iheltsoz estali eta margoz apaintzen dute, **ahal den neurrian** haren irudia berdinduz eta, ondoren zutarri gardenez inguratu, eta gorpua zutik ikusten da harrian barrena, inolako usain txarrik ez beste ezer sortu gabe. Patziku Perurena

Beste irizpide oso egoki bat bidegabekeriaren eta zigorraren arteko lotura estutzeko: zigorra izan dadila, **ahal den neurrian**, delituaren izaeraren araberakoa. Juan Martin Elexpuru

Hobe da haien tartean irristatzea, **ahal den neurrian** saihestuz. Monika Etxebarria

Enparauetan ikuspegi estuagotik ibili gara ia beti, diskurtsoaren maila, **ahal den neurrian**, galdu gabe. Andres Urrutia

16 *ahal guztia*

Francinekin **ahal guztiak** galtzen nituela, paso. Daniel Landart

Nire indar guztiaz azeleragailua zapaldu eta Mercedesak jauzi egin zuen aurrerantz, bere potentzia itzelaren **ahal guztiaz** bultzaturik. Alberto Ladron Arana

Kortesanoek **ahal guztia** egingo zuten begiak itxita eta belarriak gortuta bizi ahal izateko. Bernardo Atxaga

Neure indar eta **ahal guztiaz** salatu nahi dut, bada, hori egia ez dela. Koldo Zuazo

Legeak **ahal guztiak** ematen dizkio euskotarrari, erran nahi baita Euskal Herrian bizi denari, aukera dezan izan euskaldun ala erdaldun». Berria - Euskal Herria

Ez dezaket hargatik sinets amodiozko kutun horrek bere **ahal guztia** galdu dukeenik, eta saiatzen naiz oraino kutun horrez baliatzen. Jon Muñoz

17 *ahal guztian*

Hau esanda, bihotz osoa bere andere Dulzinearen eskuetan ipiniaz, honelako estualdian laguntza emateko eskatuaz alegia, rodelaz txit babesturik, lantza bere oin-txokoan tinko, Rozinanteren lauhazka **ahal guztian** ekin zion. Patxi Ezkiaga

Astoak korri-**ahal guztian**, etorri zitzaion laguntzera Santxo Panza; eta heldu zenean, ezin mugiturik zegoela aurkitu zuen; halakoxe kolpea izan zen, Rozinantek harrarazi ziona. Patxi Ezkiaga

Luzaz jardun zuen zaldiak han lanean, hanken **ahal guztian** lokatzari eraginez, konkordunaren eta nagusiaren deiadarrek akuilaturik, eta, azkenean, maldaren erdian zegoen patio txiki bateraino eraman zituen. Jose Morales

Ostikoka, komuneko ateaz, ahal zenuenaz jotzen zenuen txaboloko atea, eman **ahal guztian** emanez. Jokin Urain

Rufo hori, bada, igo mahai gainera eta hor hasi zen, egin **ahal guztian** kantari: Rod Stewart-en "Do you think I'm sexy?" kantatzen zuen (Sexya naizela uste al duzu?), garai hartan oso-oso modan zegoena, gaztelaniazko bertsioan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hortaz, latin eta kastillano, euskara eta begiak **ahal guztian** luzatzeak ere, ilargiari bere sekretuak aterako dizkionik, oraindik ez dut uste jaio denik. Pello Zabala

18 *ahal guztiaz*

Eta egin nezakeen bertzerik, ez bada amodio hori ahalik lasterrena garait ahal dezazun zuri opatzea, eta batez ere neure **ahal guztiaz** zu laguntzea, zuri esperantza oro galarazteko eginahal bizian? Jon Muñoz

Edo Danceny, erraten nuen neure baitan, eragozpenek suhartua, amodioz sutuko da, eta orduan neure **ahal guztiaz** diot zerbitzatuko; edo ergel hutsa baizik ez baldin bada, nik batzuetan sinesteko tentazioa dudan bezala, etsirik dateke, eta garaitutzat duke bere burua: beraz, kasu horretan, harez mendekatua ninteke bederen, nire esku zen bezainbat; bidenabar, amaren estimua, neskaren adiskidantza, [...]. Jon Muñoz

Ohar zakizkio soil-soilik ezen neure buruaren defentsa itxuratu hartan neure **ahal guztiaz** laguntzen niola: asaldatzen nintzen, mintzatzeko astia izan zezan; arrazoi txarrak ematen nizkion, iharduk zitzan; beldurra eta mesfidantza agertu nion, hark segurantzak eman ziezazkidan; eta haren lelo etengabeari, ele bat baizik ez dizut galdatzen, nire isiltasunak erantzuten zion, iduriz ez ziola [...]. Jon Muñoz

Deus ezin baitzaio ezinezkoa izan zure arima ederrari; eta egunen batean maluraz fingaitz egin bazeneza (Jainkoak ez dezala nahi!), sinets nazazu, maite polit horrek, atxiki ezazu bederen zeure **ahal guztiaz** borrokatu izanaren kontsolamendua. Jon Muñoz

Neure indar eta **ahal guztiaz** salatu nahi dut, bada, hori egia ez dela. Koldo Zuazo

Nire indar guztiaz azeleragailua zapaldu eta Mercedesak jauzi egin zuen aurrerantz, bere potentzia itzelaren **ahal guztiaz** bultzaturik. Alberto Ladron Arana

19 *ahal izan*[1]

Alegia, gauezko tximeletak - gehienetan sitsak dei daitezkeenak - direla usainaren bidez orientatzeko behar eta ahalmen gehiena daukatenak, argirik ez dagoenean **ahal duenak ahal duena** egin behar izaten baitu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kafetegi batean izandako elkarrizketa batean esan nion haurdun nengoela eta **ahal nuen** guztia egingo nuela abortatzeagatik. Joseba Urteaga

Aski da erne egotea, beti esna, begiak aurrekora baino zerbait urrunxeagora begira, eta halako batean hortxe dago jakinduria, zuk **ahal zenezakeena** behintzat, baina kontuz: ematen ez baduzu, zabaltzen ez baduzu, galdu egingo duzu konturatu gabe. Pako Aristi

Irakasleen artean, teologia eta latina bezalaxe, gizalegezko hainbat jakingai erakusten zituzten: erakutsi eta baita **ahal zen** neurrian praktikatu ere. Pello Zabala

Keinuka, gugandik hurbil zebiltzan upelak seinalatuz, abisu egin nion anaiari, eta **ahal nuen** modu guztietan ahalegindu nintzen nire asmoak adierazten. Koro Navarro

Eta, oro har, triste ikusten nuen, eta horregatik hurbiltzen nintzaion **ahal nuenean**, gizon hura atsegin nuelako eta pena ematen zidalako. Joan Mari Irigoien

Ahal izango balitz, gutariko bakoitzak nahiko luke besteak lotzen dituzten hitzarmenek gu ez lotzea. Juan Martin Elexpuru

Txalupak, ur lasterrarekin berriro beherantz baitzihoan, katea muturreraino jaregin, eta gelditu egin zen; atzealdean eseri nintzen, nire ardi larruaren gainean, **ahal nuen** erosoena. Josu Zabaleta

-Begira zerura eta zenbatu izarrak, **ahal baduzu**. Jose Antonio Mujika

Gero **ahal izan** zuen moduan iraun zuen amaren aurrean zutik, galtzontziloak eta galtzerdiak probatzen zizkion bitartean. Jokin Muñoz

Bidean behera ere jipoitu zuen, **ahal zuen** ahotsik ozenenaz garrasika: Koro Navarro

Aipatutako arrazoiengatik, irteera **ahal nuen** bezainbeste atzeratzeko eskatu zidaten. Jokin Urain

Goiarnasak basoan zabiltzala jo bazaitu, Bitoriano Gandiagarena egin dezakezu: adar mardul bat hartu, eta lurrean idatzi, **ahal duzun** bezain laster hara itzuliko zaren esperantzan, paper eta guzti. Joxerra Garzia

Ahal duguna egiten dugu froga gainditzearren, nork bere gisan, motz, zorigaizto eta liskarti beti, eta isildu egiten gara. Joxan Elosegi

Mandabillaren bidaiaz euskaraz den bertsione hau egokitu da, gaurko irakurleari irakurketa errazteko gisan, baina **ahal den** bezainbat aldakuntza guti egin da, jatorrizko hizkuntzaren musikalitatearen atxikitzeko. Aurelia Arkotxa

Etsaien burua, Francisco Franco caudilloa, ohean hil zela 1975ean, Euskal Herria eta euskara **ahal izan** zuen bezain zapalduta utzirik eta ondorengotzaren inguruko kontuak **ahal izan** zuen bezain estu loturik. Juan Luis Zabala

Oherako handiegi direnei, berriz, moztu egiten die, besterik gabe, **ahal duen** puska: zangoa zein burua. Joxerra Garzia

Beraz, eraikuntzan erabiltzeko egokiak diren gauzak azaldu behar ditut, zein nolakotasun dituzten eta zer bertute dituzten, **ahal dudan** neurrian behintzat. Santiago Iruretagoiena

Kannerren hitzetan, bakardade horrek: "Atea ixten dio, ez-ikusiarena, ez-ohartuarena egiten dio **ahal duen** guztietan haurraren kanpo-aldetik datorren guztiari". Xabier Olarra

Etxeko emakume batek edota erromeriara arrimatutakoren batek jotako panderoarekin **ahal zenean**, baina bakarrik gehienetan. Iñigo Aranbarri

Estatuek **ahal dituzten** neurri guztiak hartu beharko dituzte, itsasoak ez daitezen kutsa gizakiaren osasuna arriskuan jartzen, baliabide biziak eta itsas bizia kaltetzen, laketerako aukerak murrizten edo itsasoaren beste erabilera zilegi batzuk oztopatzen dituzten substantziez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

-Zoaz **ahal duzun** moduan barrura, nik entretenituko ditut-eta - esan zion Justinak Joanesi, eta pauso batzuk aurrera eginez, dena izar eta dena ilargi, soldaduen begi bistara azaldu zen, lau botila koñak eskuetan, txin-txin hoska. Felipe Juaristi

Lanik ezin bilatuz estualdi latzak iragan zituen: hemen hilabeteko lana, han astebeteko gosea, loa **ahal zuen** tokian... Iñaki Zabaleta

Gero, berriz, **ahal izan** nuenean, "sukarraldia" pasata nengoen eta ez nuen joko hartan hasteko gogo berezirik izan. Aitor Arana

Aspaldiko ohitura zuen, nahiz eta osterantzeko guztiei "nire senarra" azpimarratu ohi zien **ahal zuen** guztietan, seguru aski etxe berean emakume bi eta gizon bakarra bizitzeak herrian sor zitzakeen esamesen itotzeko. Josu Landa

Ahal baduk, ordu bietan etorri! Pablo Sastre

Lehenik norberak onartu behar du eta, **ahal duen** neurrian, emakume izateko modua aukeratu. Ana Urkiza

Gizonez soilik zen arduratzen, eta bizialdia **ahal den** sinpletasunik handienaz pasatzeko moduaz. Juan Garzia

Bata bestearen ondoren jartzen nituen hitz hoskideak eta **ahal nuena** egiten nuen. Andoni Egaña

-Ondo, ondo zagok - esan diot kemena **ahal nuen** moduan bildurik -, erakuts iezadak beste eskua. Anjel Lertxundi

Eszitaturik nengoen, baina **ahal izan** nuen bezala disimulatzen saiatu nintzen; ez dakit guztiz lortu nuen. Iban Zaldua

Semeak bihotza penaturik eraman zuen, etxetik joan zitzaionean, baina **ahal zuen** guztian itzuliko zela agindu zion, eta zintzoki bete zuen hitza beti. Karlos Zabala

Esaten du, zera, **ahal balu** bere gerrian lotuko nindukeela koloretako hari batez. Juan Kruz Igerabide

Bera ere jantzi egin zen, **ahal izan** zuen moduan. Eskarne Mujika

Leitu eta idatzi, aise behinik behin, gutxik **ahal zuten**. Pello Zabala

Eta putakumea **ahal nuen** bezain urruti bota nuen. Koro Navarro

Buruz oso argia izan gabe ere, hainbesteko jakingura zuen organoen funtzionamenduaz non, **ahal bazuen**, hildakoren baten esku edo besoren bat etxera eramaten baitzuen, bere gogara disekatu ahal izateko. Josu Zabaleta

Ez naiz idazlea, eta **ahal dudan** moduan kontatuko dut dena. Javi Cillero

Nik uste ETAk **ahal duena** baino gutxiago, askoz gutxiago gainera, hiltzen duela! Pako Aristi

-Jakina **ahal duela**! Julen Gabiria

Baina ni saiatu egiten nauk beti **ahal dudana** egiten. Joxemari Iturralde

Ahal duzunean zoaz leku bazterturen batera eta aska itzazu deabru guztiak airean. Jasone Osoro

Hemen naturak **ahal duen** oro egiten du gizakia sosegatzeko, eta gizakiak **ahal duen** oro egiten du natura iluntzeko. Koldo Izagirre

Hori entzutean, guztiz nahigabetu zen erregea, eta Daniel salbatzea erabaki zuen, inondik **ahal bazuen** . Jose Antonio Mujika

20 *ahal izan*^{2} (aditz bati atxikita)

Begien bistan izanez horko katalogoa, erraten **ahal dugu** egileek arrunt baztertu zituztela euskara eta euskaldunak kontestutik, iberiarren auzoak zirelarik. Herria

Neskek nahi duten mailan parte hartzen **ahal dute** . Herria

Ur-Txori behar zuelako izan ontziak, gauez eta faxisten kargamentu haiekin nabigatu **ahal izateko** . Edorta Jimenez

Hizkuntz zeinuak eta komunikazioaren osagaiak berezkoa ez duten eginkizunetara egokitu **ahal dira** literatur obretan. Iñaki Arranz

Mezua utzi **ahal izan** diot Latineko eskuliburuaren gainean, Iban Zaldua

Goitik behera berridazten ari naiz Magiaren Historiaz egin nuen saiakera osoa, hemen aurkitutako gauza batzuk sartu **ahal izateko** . Iñaki Mendiguren

-Esperoan gelditzen **ahal naiz** ? -galdetu nuen. Fernando Rey

Ea albait arinen bisitatu **ahal duzun** . Joseba Sarrionandia

Oraindik ere hala dut, izukide izanak gotortu egiten baitu adiskidetasuna: ez distantziak ez denborak eraisten **ahal dute** adin horretan muturreraino eramandako konplizitatea. Joxerra Garzia

Latinez sicera zioten erraiten, heldu baita aldakuntza hau ukaiten **ahal genukeela** : Sicera > Cisera > Cisa (kastillanoz) eta Cize (frantsesez). Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Denek ulertu **ahal dezaten** eta abar... "Burlatzen naiz Garibaiez, bai halaber Etxabez, zeñak mintzatu baitire erdaraz eskaldunez". Iñaki Iñurrieta

Zuk ezin zenuen besterik egin gela jendez beteta egonda; akabua izanen litzateke auzitegi batean bakoitza zutitu eta gogoak ematen diona oihukatzen **ahal balu** . Fernando Rey

Eta, oro har, ematen zuen bulego hura andetan garraiatzen **ahal zela** , geltokiko buru eta guzti, aita santua eramaten duten bezala. Fernando Rey

Horren ondorioz, eskuak erabili **ahal izan** genituen eta burmuina handitu zitzaigun. Luis Elberdin

Behin egokitu ondoren ez da berriz mugitu, lasai gelditu da eta deus ere ez nuela, alarma faltsua zela sinetsarazi **ahal izan** diot neure buruari. Monika Etxebarria

Esplikatzen **ahal duzu** , hori? Menane Oxandabaratz

Ez zukeen agian gaizki hartuko ere, ikusi **ahal izan** balu, umore beltzaren hain zale izandakoak. Josu Zabaleta

Horietako batek ere ez dizu aurre egin **ahal izango** . Jose Antonio Mujika

Belarra jan **ahal bagenu** (eta animaliak jaki-eraldatzailetzat erabili beharrik izan ez) bost edo ha-mar aldiz handiagoa litzateke munduko proteina-hornia. Irene Aldasoro

Nik zelai berde eta birjinak zanpatzen **ahal ditut** , basamortuan ibili behar izatea da zuen kondena. Jon Alonso

Hire milioiekin, hainbertze egiten **ahal duk** erreka jotzeko beldurrik gabe. Aingeru Epaltza

Fionn, arnasa lasaiago hartuz, atzera eta aurrera kulunkatzen hasi zen handik irten **ahal izateko** . Joanes Urkixo

Haren ulua nekez azpiratzen **ahal du** kamioien azantzak. Xabier Montoia

Ez nekien honetaz nola galdetu, eta ez nintzen ausartzen zuzen galdetzen, lotsaz; auzo-lotsaz, baina, kalkulatuz nik sentitzen nuena ez zela ezer izango Zamariak sentitzen **ahal zuenarekin** . Jon Alonso

Esaldi terrible bat entzun **ahal izan** genuen orduan, kirolari haren patuari buruz zalantzabiderik uzten ez zuena. Karlos Linazasoro

rrian lanean aritzen **ahal haiz** turkoaren pare, ez duk sekula ez eskerrik, ez saririk eta ez ohorerik, etxe onetik ez baldin bahator!

Masta eraitsi beharko litzateke ziria haren azpitik kendu **ahal izateko** . Edorta Jimenez

Gauza batzuk zuhurtzia hutsagatik egin behar dira: zenbait helburu galdutzat eman, helburu handiagoei indarrez ekin **ahal izateko** . Harkaitz Cano

Deus guti erraten **ahal nion** , baina harro nintzen tokiko hizkuntza pitinka-pitinka ikasten ari nintzela ikusita. Xabier Montoia

-Niregatik, egoten **ahal duk** urte bete paretan sikatu arte, Antxonen tximeletak bezalaxe! Koldo Izagirre

Kolpe larregi jaso zituen, jasan **ahal zituenak** baino gehiago, eta haietako batzuek erdi tontotuta utzi zuten, beste askori gertatu bezala. Paddy Rekalde

Haien ustez, ezinezkoa zen kolorearen pertzepzio eta irudikapenerako halako gunerik existitzea eta garun-azalaren edozein eremu eginkizun horretarako bereizi **ahal izatea** . Xabier Olarra

Zuk hitz egiten duzu bospasei hizkuntza, eta horietako edozein hitz egin **ahal duzu** klinikan, bakarrik zeurea ez. Joxe Azurmendi

Kontuz ibiltzen **ahal zara** ! Xabier Olarra

Gero, zapi bat eman zion, bularrean jar zezan, onik iritsi **ahal izateko** . Juan Kruz Igerabide

Izan ere, haien jardunaren kontrastean argiago ikusi **ahal izan** dugu bertsolaritza zer den eta zer ez den. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Baina esaten duenari, zer baina eta zer maina erantzun **ahal diogu** , eta Azpeitia aldean akaso esaten duenak akaso makaso, Elormenditxotik gora Urrekaso erantzuna topa lezake (Ats 432). Iñaki Arranz

Eta Harryk gerarazi **ahal izan** baino lehen, Dobbyk ohetik salto egin, Harryren idazmahaiko lanpara hartu eta bere burua jotzen hasi zen, belarriak zartatzeko moduko uluak eginez. Iñaki Mendiguren

Beste herriek indarkeria erabili eta justifikatu **ahal bazuten** , euskaldunok zergatik ez. Joseba Zulaika

Beharrezkoa da ikurraren arbitrariotasuna, hizkuntzek adierazpidetzat jokatu **ahal izateko** beharrrezko zaien egonkortasunari euts diezaioten, eta aldi berean, egonkortasun hori oso sendoa da, hizkuntzak gizataldean finkatuak daudelako: gizarte masa osoan finkatzen dira hizkuntzak. Isabel Arrigain

Gosearen eraginez, ezbaian ibili barik zeharkatu zuen jauregiko ate nagusia Hassanek, eta harriturik ikusi zuen zelan bete ziren entzundako promesak, nahi beste jaki goxo dastatu **ahal izan** baitzituen hurrengo orduetan. Jon Arretxe

21 *ahal izanez gero*

- Badakik, Phil, **ahal izanez gero** , atsegin handiz lagunduko niakeela, baina oraintxe bertan nire egoera finantzarioa oso-oso zaila duk. Lopez de Arana

Efeson ez gelditzea erabakia zuen Paulok, Asia probintzian luzatzeko beldurrez; presaka zen, izan ere, Mendekoste-egunerako Jerusalemen egon nahi baitzuen, **ahal izanez gero** . Elizen arteko biblia

Ahal izanez gero , noski." Bistakoa zen, inolako linternaren argirik ez zen behar hori ikusteko: heriotzaren zama berdindu eta bizirik atera nahi bazuen, balantzaren beste aldean ahalik eta gehien jarri behar zuen. Bernardo Atxaga

Ematen du berak pentsatu zuela nik eskubidea nuela Voldemorti aurre egiteko... **ahal izanez gero** , behintzat... Iñaki Mendiguren

Baina galderaren ezkutuko zergatiaren berririk ez zion osabari agertu nahi, **ahal izanez gero** . Joxemari Urteaga

Ahal izanez gero , ez zuen SDren egoitzatik ehun kilometrora ere izan nahi. Alberto Ladron Arana

Ahal izanez gero . Xabier Montoia

Maite duzun norbait baldin baduzu, jende horri benetan ihesi egin nahi izanez gero... bai zuk, bai aitak... diruarekin lagundu **ahal izanez gero** ... Ander Irizar

Zuzenketen eztabaida egingo da bertan eta hirukoaren helburua da **ahal izanez gero** saio bakar batean amaitzea, hots, oraingoan ponentziarik eratu behar izan gabe. Berria - Euskal Herria

" **Ahal izanez gero** , liburuak sailean irakurri behar dira, lehenengotik hasita. Berria - Kultura

Gainerako taldeek lehia bera izango dute, mailari eutsi, eta, **ahal izanez gero** , UEFArako lehian sartzea. Berria - Kirola

Asmo sendoa hartua zuten tatariarren ondotik alde egiteko agurrik esan gabe, lehenbailehen soldadu errusiarrekin biltzeko, eta, **ahal izanez gero** , haiekin Irkutskera joateko. Karlos Zabala

Hala ere, ahal dudan guztietan pasatzen naiz Kanpantzarretik, eta, **ahal izanez gero** , geldialdi bat egiten dut Etxabetarren tabernan. Joxerra Garzia

Hartu eta lepoa bihurrituko nienan banan-banan **ahal izanez gero** . Xabier Mendiguren Elizegi

Ene!, jakina, direnak eta ez direnak egingo nituzke, **ahal izanez gero** , baina kontatu dizut ezinezkoa izango zaidala gaur gauean. Mirentxu Larrañaga

Ahal izanez gero , noski, arratsalde hartan bertan itzultzeko prest nengoen. Aitor Arana

22 *ahal izate*

Bigarren solasak, ordea, hauxe dio, hots, bereizten direla batetik ahalmena eta bestetik boterea; zeren eta, **ahal izatea** ez omen baita oraino izatea, izan aitzinekoa baizik. Piarres Xarriton

Eta jakiteaz diogun hori, berebat esan liteke izateaz eta **ahal izateaz** ere. Iñaki Segurola

Ni naizen hau ez da maitamen hutsa, ez delako mena bakarrik, **ahal izatea** bakarrik; maitatzera joera, bultzakada, irrika, maitatzen ari beharra baizik. Jenaro Garate

23 *ahal izatera*

Egun egokia aukeratu zuen Martak bidaia egiteko, nahiz eta iheserako garraiobide publikoak erabiltzea komeni den beti, **ahal izatera**: besteek eramaten gaituzteneko sentipena beti da erruduntasun konplexuen askatzaile eta zama kentzaile iheslariarentzat. Harkaitz Cano

Zeren, **ahal izatera**, arimaren indarra askoz aisago jar bailiteke buruan edo sorbaldetan edo orpo barrenetan eta edonon jaioko bailitzateke, nahiz eta gizakume edo ontzi berean gelditu. Xabier Amuriza

Pena ematen zidan Gregek jendetza hura ikusterik ez izateak; **ahal izatera**, haietako bat sentituko baitzen, etxean bezala. Xabier Olarra

Nik, **ahal izatera**, jakina, berehala kenduko niokeen hiltzeko asmo guztia burutik. Pedro Alberdi

Ahal izatera, bere aurreko bizimoldetik, Hamidak arratsalderoko ibilia baino ez zuen atxikiko. Patxi Zubizarreta

24 *ahal nolaka* ahal den moduan, nola edo hala.

Bederen, orain ez nuen gezurrari heldu behar izan neure burua ahal **nolaka** zuritzeko. Aingeru Epaltza

Halako lotsa halako laido halako hastio halako ahalke halako amorrua sortu zait erraien zuztarretan, non ihes egin baitut atzerantz, ahal **nolaka**, ziegarantz. Koldo Izagirre

25 *ahal oroz*

Alde batetik aipatü düdan bakea, segür, bena bestetik tai gabeko borrokaren beharra heben ere, hebenko gisan, ahalen arabera, **ahal oroz**. Herria

Idazlearen züzen berezi hori eneganatzen eta ene gain hartzen düt, historia **ahal oroz** edertü behar düdanaz geroz, Ziberoko gure antzerki zahar eta beti gaztearen honetan. Herria

26 *ahala egin*

Nolanahi ere den, fermuki galdatzen baitidazu, nigandik dut aldenduko; neure **ahala eginen** dut bederen: zeren sarri gauzak, nahiz funtsean sinpleenak izan behar luketen, trabagarri gertatzen baitira formaren aldetik. Jon Muñoz

Zauriren bat egin badute, naturari bere **ahala egiten** uzten diote. Gotzon Garate

Dugun orok gure **ahala egin** gure herritarrei hemengo mintzaia maita-arazteko eta arrotzeri ere ahalik hobekiena ezagut arazteko. Xipri Arbelbide

27 *ahala eman*

Diskriminazioen aurka eta Berdintasunaren aldeko Goi Agintearen botere indartzea: Zigor administratiboak hartzeko **ahala eman** nahi dio lege berriak. Berria - Harian

Monestierrek azalpenak kartsuki aditu zituen eta interes berezia erakutsi zuen aldi bakar batez usoen hamarnaka harrapatzeko **ahala ematen** zuten sareak hedatzerakoan. Elena Touyarou

Zientziaren aurkako salaketarik larriena egiten zaio aspaldion ingeniaritza genetikoari: **ahala ematen** diela biologoei, alegia, itsuski lardastu eta eskuperatzeko gizakiaren hala gorputza nola gogoa. Juan Garzia

- Gerasto Kartiereko bidean xuxentze batzu baziren egiteko eta hautetsiak ados dira eta auzapezari izenpetzeko **ahala emaiten** dakote agiri horren antolatzeko. Herria

Poetikoki bidaiatzeko **ahala ematen** duen espazioa eraiki nuen hor, mapa geopoetikoa, bere hizkuntz proposamenarekin. Ana Urkiza

Kongregazioak debekatzeko **ahala ematen** zuen "Loi des Assocations" legea bozkatu eta, eskuinak lege horren kontra egin manifestaldi batetara deitu zuen 1901ean. Xipri Arbelbide

Hassanek azaldu zuenez, lege horrek, halabeharrez, behin-behineko gobernuari **ahala emango** dio larrialdi egoera indarrean jartzea ebazteko. Berria - Mundua

Haatik, oinarrizko eskubideen agiriak "zinezko eredu sozial europar bat» sortzeko **ahala ematen** duela azpimarratu dute. Berria - Euskal Herria

Ekitaldi anitz eskaintzeko **ahala ematen** du. Berria - Kultura

28 *ahalak egin*

Benoit anaiak **ahalak eginen** ditu lehen mailerat igaiteko eta Mikel Guerendiainek bigarren mailean segitzeko. Herria

29 *ahalak eta leherrak egin*

Edonola ere, gorde beharrekoa eta askatasun esparruan uzteko modukoa: legeak, jakina, giza gogoari hurbiletik dagokion horretan askatasunik ez badio ematen norbanakoari, norbanakook eurok, besterik gabe, legea saihesteko **ahalak eta leherrak egiten** dituzte. Andres Urrutia

30 *bere ahala egin*

Zauriren bat egin badute, naturari **bere ahala egiten** uzten diote. Gotzon Garate

31 *ezin esan ahal*

Astearteak **ezin esan ahala** pentsamendu luzatu eta buru makur asaldatu ninduen. Berria - Kultura

Eta agian ez nintzen Lakatos jaun harekin aurreragoko tratura pasatuko hark, bat-batean, zerbait harrigarria egin ez balu, niretzat **ezin esan ahala** txundigarria. Matías Múgica

Ez zitzaidan inolako galdera egokirik gogoratzen, mingaina lehor neukan, **ezin esan ahala** handi eta astun ahoan. Matías Múgica

32 *ezin konta ahal*

"Humboldtek dioenez, eta 1800 inguruko kontuak dira, baziren Euskal herrian **ezin konta ahala** ipuin, zikloetan bereziak eta partituak. Anjel Lertxundi

Ezin konta ahala lagun jarri zituzten dantzan 1976ko martxoaren 27ko hartan. Iñigo Aranbarri

Mikelek bere orgasmoa izan zuenerako, Pilarrek **ezin konta ahala** gozatu zituen. Aitor Arana

Kurten ekintzei buruz **ezin konta ahal** aieru eginez eta lastairako zimitz ugarien konpainian hartu ninduen loak. Anjel Lertxundi

Plastikozko poltsa handiak ziren, presaka beteak; neguko kapelak zeuzkaten barruan, **ezin konta ahala**, eta larruzko poltsak, 40 ko urteetakoak. Joxan Elosegi

Munduko **ezin konta ahala** objekturentzat esan nahi lituzke Talesek egiak. Jon Muñoz

Beste gisa bereko **ezin konta ahala** herritatik - gehienetatik! - ez ezik. Iñaki Segurola

Eta jakinduriarekin ondasun guztiak batera etorri zitzaizkidan, eta **ezin konta ahala** aberastasun haren eskutik. Elizen arteko biblia

Ezin konta ahala gizon dabiltza hortik Woody Allenen filmetako gizagaixoarena egiten nahigabe. Berria - Kultura

Adierazi ere egin zidaten inoiz ez zutela horren bitxi itxuraturiko uterorik ikusi, ongi egingo nukeela pittin bat kezkatuko banintz, gaitzak **ezin konta ahala** baitzebiltzan hor barrena. Joxan Elosegi

Ezin konta ahala behaketa saio izango zituen eginak, eta hala ere, nonbait, zer ikusi asko geratzen zitzaion tapiz hartan, aldi bakoitzeko arreta beti berrituz ekiten baitzion azterketari. Iñaki Iñurrieta

Telefonoa joka hasi zen eginahalean eta, ordu erdi geroago, **ezin konta ahala** udaltzain eta isileko polizia zebiltzan hiriko kale hutsetan, isilik, urriko hozkirrian zapata-zolekin antzigarra zapaltzen. Jose Morales

33 *ezin konta ahaleko*

Eta beste hainbeste gertatuko litzateke hizkuntzarekin, hizkuntza, osagai kopuru mugatu batez osatua balego; baina ikur linguistikoak **ezin konta ahalekoak** dira. Isabel Arrigain

Halako suertez, non, misioneak akabatu bezain fite, **ezin konta ahalekoak** izaiten baitziren konfesionea solizitatzen zioten herritarrak, beren egunorozko desbidetik bidezko biderat egiteko asmotan. Joan Mari Irigoien

Hain **ezin konta ahalekoak** dira Xveiken pasadizoak, hain inportanteak dira bere hitzak, eta hain abilki daude liburu honetan euskarara ekarriak, ezin baitiot..., konparazio, hasi-hasierako zenbait paragrafo hona ekartzeko tentazioari eutsi. Pablo Sastre

34 *guraso-ahal* *(corpusean ez dago; ETCn **603** agerraldi)* ik **guraso aginte**.

Agian, aukera izango zuen ahizpa gaztearen gaineko **guraso-ahala** bere gain hartzeko, adin nagusikoa izan arte geratzen zitzaion denboran. ETC-literatura, saiakera

Gurasoak izaten dira erantzule nagusiak **guraso ahalen** gainean kontrako epaia ematen denean, eta gizonek estutzeko modu gisa erabiltzen dute bahiketa, bikotekideak alde egiten duenean. ETC-prentsa

Gainera, **guraso ahaldun** askok seme-alabak zaintzarako aukerarik ez duen gurasoaren aurka jartzen dituztela frogatzen duten ikerketa ugari daudela adierazi du Aleuk. ETC-prentsa

Garai hartan, emakumeak seme-alabak zaintzeko bizi ziren, baina **guraso ahala** gizonek zeukaten. ETC-prentsa

Sententziak dio dibortzioak ez duela kentzen **guraso ahala** eta herentzia eskatzeko eskubidea, aitak ez baitzuen seme-alabetako bakar bat ere arbuiatu. ETC-prentsa

Auzitegi Gorenak ebatzi du andrea hil duten gizonei **guraso ahala** erretiratzea. ETC-prentsa

Haur eta nerabeek bi guraso badituzte, eta familia elkartzeko eskaria bakar bat egiten ari bada, horrek **guraso ahala** edo umeen zaintzaren ardura bere esku daudela erakutsi beharko du. ETC-prentsa

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, **guraso-ahala** edo tutoretza egikaritzen dutenek bakar-bakarrik eragin dezakete adingabeen ezgaiketa, legearen arabera hori bidezko denetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lege zibilek printzipio horiek guztiak bereganatu dituzte, **guraso-ahalaren** ondorioak, eta gurasoek eta seme-alabek elkarrekiko dituzten eginbeharrak arautzeko, gai horiek zuzenbide zibilaren arlokoak baitira. ETC-literatura, saiakera

Atxilotuaren aitorpen oro haren letraduaren aurrean egingo da, bai eta adingabearen gaineko **guraso-ahala**, tutoretza edo zaintza egitez edo zuzenbidez betetzen dutenen aurrean ere, salbu eta, azken kasu horretan, inguruabarren arabera kontrakoa egokiagoa denean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Guraso-ahalaren mende ez daudenen kasuan, tutoreak edo kuradoreak izango dira ordezkari. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jaiotza-folioen orri-bazterretan egindako inskripzioen harira, azaldu beharrekoa da **guraso-ahalaren** gain eragina duten egitateen kasuan hartutako irizpidea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Guraso-ahala beti egikarituko da seme-alaben onurarako, euren nortasunarekin bat etorriz, eta haien osotasun fisikoa nahiz psikologikoa errespetatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

35 *inondik ahal izan*

Hori entzutean, guztiz nahigabetu zen erregea, eta Daniel salbatzea erabaki zuen, **inondik ahal bazuen**. Jose Antonio Mujika

36 ***zazpi ahalak egin*** eginahalak egin.

Aldakuntza gutti Zuraideko hautetsietan, herriaren dinamika antzina segituz **zazpi ahalak eginak** izanen baitira hitzeman bezala. Herria

Politikoak eta betiko kulturgile harroputzak atera beharrean, jende xehea baina aldi berean ezaguna sartzeko **zazpi ahalak egiten** ari gaituk. Aingeru Epaltza

Zazpi ahalak egiten zituen haien irri tolesgabe bera lortze aldera, baina bekaizkeriak hartua zegoen. Patxi Zubizarreta

Zazpi ahalak egin nituen haren "biltzeko" baina debaldetan izan zen. Daniel Landart

Azkenik, doktorea, nagusi zorrotza, atean azaldu zen une-unean lakio ikaragarri haren biktimak, **zazpi ahalak eginik**, loturik zeukaten soketatik askatzea lortu, eta Héraclius haserretuak esku hartu izan ez balu, Jainkoak daki zer litxarreriaz aseko ez ote zen lau eskudun Tantalo hura. Josu Zabaleta

Bere harrokeria beheratzeko **zazpi ahalak eginik**, Kirxaren kafe etxerantz abiatu zen. Patxi Zubizarreta

Gizonaren garuna, hotz-hotzean lan eginez, **zazpi ahalak eginda** ere, ezin iritsiko zatekeen barreneraino sartu eta bere formaren premia guztiak betetzera. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 21 aldiz agertzen direnak)

ahalak oro (25); **egin ahalak** (46); **zazpi ahalak** (22)

---

ahal[2] geroaldiko aditzei atxikitako partikula, desirazko esanahia ezartzen diona.

-Jainkoak ordainduko **ahal** dizu, Buxi doktorea. Patxi Zubizarreta

"Lipuak itoko **ahal** hau!", eta ez zioten ulertzen. Koldo Izagirre

Jainkoak barkatuko **ahal** hau! Txillardegi

Zapartatuko **ahal** ditugu lehen baino lehen! Markos Zapiain

Pentsatzen dut ere: itzuliko ahal da Véra Paul baino lehenago, eta hartuko **ahal** dute berriz lanean! Eskarne Mujika

-Ez **ahal** gaituk garena izango! - erantzun dio Belfegorrek izerdi patsetan. Anjel Lertxundi

Ez **ahal** dute harrapatuko, behintzat! Pedro Alberdi

Ez **ahal** du publizitatean lan egingo! Jon Muñoz

Nonbaitean argia erakutsiko **ahal** diot, zoria nere alderago dabilen egunen batean. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 21 aldiz agertzen direnak)

adierazi ahal (30); **aditu ahal** (22); **agertzen ahal** (23); **ahal badu** (21); **ahal badut** (23); **ahal baduzu** (31); **ahal baldin** (33); **ahal balitz** (34); **ahal balu** (21); **ahal banu** (28); **ahal bezain laster** (69); **ahal bezain ongi** (42); **ahal bezainbat** (109); **ahal bezainbatean** (22); **ahal bezainbeste** (21); **ahal bezala** (170); **ahal bezen** (120); **ahal bezenbat** (40); **ahal dela** (180); **ahal den guztia** (30); **ahal den neurrian** (71); **ahal dena** (40); **ahal direla** (57); **ahal diren** (80); **ahal direnak** (26); **ahal dit** (22); **ahal ditu** (57); **ahal dituen** (34); **ahal ditugu** (27); **ahal dituzte** (27); **ahal dizut** (27); **ahal dudan guztia** (32); **ahal dudan neurrian** (27); **ahal dudana** (31); **ahal duela** (37); **ahal duen guztia** (47); **ahal duen neurrian** (23); **ahal duena** (54); **ahal duenak** (26); **ahal dugun guztia** (27); **ahal duguna** (24); **ahal duk** (30); **ahal dut** (50); **ahal dute** (113); **ahal dutela** (24); **ahal duten guztia** (26); **ahal dutena** (24); **ahal duzu** (67); **ahal duzue** (24); **ahal duzun** (32); **ahal ere** (43); **ahal ez** (128); **ahal genuen** (22); **ahal guziak** (40); **ahal izaiteko** (55); **ahal izan baino** (28); **ahal izan behar** (26); **ahal izan da** (55); **ahal izan den** (25); **ahal izan dezan** (25); **ahal izan dira** (57); **ahal izan ditu** (23); **ahal izan ditugu** (32); **ahal izan dituzte** (37); **ahal izan du** (93); **ahal izan dudan** (40); **ahal izan duen** (35); **ahal izan dugu** (80); **ahal izan dut** (85); **ahal izan dute** (75); **ahal izan ez** (32); **ahal izan genuen** (60); **ahal izan nion** (21); **ahal izan nituen** (31); **ahal izan nuen** (160); **ahal izan nuenez** (28); **ahal izan zen** (104); **ahal izan zion** (30); **ahal izan ziren** (70); **ahal izan zituen** (65); **ahal izan zituzten** (49); **ahal izan zuen** (291); **ahal izan zuten** (186); **ahal izanen dute** (23); **ahal izanez gero** (122); **ahal izango balu** (21); **ahal izango banu** (23); **ahal izango da** (245); **ahal izango dela** (29); **ahal izango den** (25); **ahal izango dira** (247); **ahal izango direla** (23); **ahal izango diren** (26); **ahal izango ditu** (68); **ahal izango ditugu** (22); **ahal izango dituzte** (99); **ahal izango du** (171); **ahal izango dugu** (68); **ahal izango dut** (31); **ahal izango dute** (195); **ahal izango duzu** (35); **ahal izango duzue** (21); **ahal izango litzateke** (32); **ahal izango luke** (27); **ahal izango zuela** (23); **ahal izango zuen** (41); **ahal izatea da** (24); **ahal izatea espero** (21); **ahal izateak** (58); **ahal izateko baldintzak** (23); **ahal izateko behar** (28); **ahal izateko moduan** (24); **ahal izaten** (29); **ahal litake** (26); **ahal litakeela** (50); **ahal litakeen** (22); **ahal litazkeela** (23); **ahal naiz** (21); **ahal nuen** (128); **ahal ote** (29); **ahal zaio** (35); **ahal zara** (33); **ahal zela** (46); **ahal zen** (172); **ahal ziren** (71); **ahal zituen** (42); **ahal zuen guztia** (35); **ahal zuen moduan** (24); **ahal zuena** (33); **ahal zuten** (131); **aipatzen ahal** (21); **aldatu ahal izateko** (21); **antolatu ahal** (22); **argitu ahal** (32); **asmatzen ahal** (27); **atera ahal izan** (33); **atera ahal izango** (24); **atera ahal izateko** (68); **ateratzen ahal** (30); **atxiki ahal** (22); **atxikitzen ahal** (23); **aukeratu ahal** (35); **aurkeztu ahal izateko** (30); **aurkitu ahal izango** (22); **aurkitu ahal izateko** (25); **aurkitzen ahal** (38); **aurre egin ahal** (89); **aurrera atera ahal** (27); **aurrera egin ahal** (40); **aztertu ahal** (45); **baieztatu ahal** (22); **baina ahal** (43); **bakoitzak ahal** (32); **baliatu ahal** (49); **baliatzen ahal** (30); **barkatuko ahal** (24); **begiratu ahal** (24); **bere ahal** (27); **bereizi ahal** (26); **bermatu ahal izateko** (32); **berreskuratu ahal** (38); **bete ahal izateko** (44); **bideratu ahal** (29); **bildu ahal izan** (32); **biltzen ahal** (21); **bisitatu ahal** (28); **bizi ahal izango** (21); **bizi ahal izateko** (70); **bizitzen ahal** (23); **bozkatu ahal** (30); **burutu ahal** (23); **da ahal** (24); **deitu ahal** (29); **deitzen ahal** (60); **du ahal** (30); **edo ahal** (26); **eduki ahal** (56); **egiaztatu ahal izan** (56); **egin ahal izan** (252); **egin ahal izango** (213); **egin ahal izatea** (69); **egin ahal izateko** (521); **egiten ahal** (388); **egoiten ahal** (32); **egokitu ahal** (26); **egon ahal izateko** (33); **egoten ahal** (34); **ekarri ahal** (29); **ekartzen ahal** (54); **ekin ahal** (22); **emaiten ahal** (76); **eman ahal izan** (30); **eman ahal izango** (48); **eman ahal izateko** (97); **ematen ahal** (48); **entzun ahal izan** (116); **entzun ahal izango** (62); **entzun ahal izateko** (21); **entzuten ahal** (35); **erabaki ahal** (36); **erabili ahal izango** (51); **erabili ahal izateko** (57); **eraiki ahal izateko** (24); **eraikitzen ahal** (21); **erakutsi ahal** (65); **eraman ahal izan** (22); **eraman ahal izango** (21); **eraman ahal izateko** (50); **erantzun ahal** (47); **ere ahal** (23); **ere ikusi ahal** (30); **erosi ahal izango** (38); **erraiten ahal dugu** (33); **erraten ahal** (40); **esan ahal izan** (31); **esan ahal izango** (45); **esan ahal izateko** (37); **esaten ahal** (26); **eskaini ahal izateko** (28); **eskatu ahal** (32); **eskuratu ahal izan** (21); **eskuratu ahal izango** (33); **eskuratu ahal izateko** (29); **etorri ahal** (22); **eutsi ahal izan** (29); **eutsi ahal izateko** (48); **ez ahal da** (43); **ez ahal du** (25); **ezagutu ahal izan** (31); **ezagutu ahal izateko** (33); **ezarri ahal izateko** (21); **ezartzen ahal** (26); **ezin konta ahal** (30); **frogatu ahal izan** (57); **gainditu ahal izateko** (30); **garatu ahal izateko** (33); **gauzatu ahal izateko** (51); **gelditu ahal izateko** (22); **gertatu ahal** (27); **gertatzen ahal** (56); **gorde ahal** (24); **gozatu ahal** (48); **harrapatu ahal** (22); **hartu ahal izan** (56); **hartu ahal izango** (93); **hartu ahal izateko** (95); **hasi ahal** (31); **heldu ahal** (27); **heltzen ahal** (25); **hitz egin ahal** (103); **hori egin ahal** (39); **hori lortu ahal** (30); **ibili ahal** (40); **ibiltzen ahal** (28); **idatzi ahal** (28); **ihes egin ahal** (46); **ikasi ahal** (43); **ikusi ahal izan** (367); **ikusi ahal izango** (273); **ikusi ahal izateko** (116); **ikusten ahal da** (21); **ikusten ahal dira** (26); **irabazi ahal izateko** (28); **irabazten ahal** (22); **irakurri ahal izan** (41); **irakurtzen ahal** (33); **iraun ahal** (31); **irauten ahal** (23); **ireki ahal** (22); **iritsi ahal izateko** (38); **irten ahal** (21); **itzuli ahal izateko** (21); **izaiten ahal** (234); **izan ahal** (78); **izanen ahal** (21); **izango ahal da** (22); **izaten ahal** (193); **jakin ahal izan** (118); **jakin ahal izango** (41); **jakin ahal izateko** (39); **jakiten ahal** (34); **jan ahal izango** (21); **jardun ahal** (27); **jarraitu ahal izan** (23); **jarraitu ahal izango** (27); **jarraitu ahal izateko** (76); **jarri ahal izan** (22); **jarri ahal izateko** (46); **jartzen ahal** (25); **jasan ahal** (34); **jaso ahal izan** (30); **jaso ahal izango** (28); **jaso ahal izateko** (71); **jiten ahal** (33); **jo ahal** (42); **joaiten ahal** (31); **joan ahal izateko** (39); **joaten ahal** (21); **jokatu ahal izan** (22); **jokatu ahal izango** (41); **jokatu ahal izatea** (25); **jokatu ahal izateko** (53); **kausitzen ahal** (28); **kendu ahal** (37); **konpondu ahal izateko** (22); **kontatu ahal** (30); **kontrolatu ahal** (23); **lagundu ahal izateko** (22); **laguntzen ahal** (42); **lan egin ahal** (34); **lortu ahal izan** (27); **lortu ahal izango** (30); **lortu ahal izateko** (151); **mantendu ahal** (25); **mintzatu ahal** (24); **mintzatzen ahal** (21); **neurtu ahal** (22); **nik ahal** (37); **onartu ahal** (31); **onartzen ahal** (33); **ordaindu ahal izateko** (23); **osatu ahal izateko** (24); **parte hartu ahal** (91); **parte hartzen ahal** (35); **pentsatu ahal** (29); **pentsatzen ahal** (75); **saihestu ahal izateko** (21); **sailkatu ahal** (22); **salbatu ahal** (29); **sartu ahal izan** (36); **sartu ahal izango** (26); **sartu ahal izateko** (105); **sartzen ahal** (57); **segitu ahal** (29); **segitzen ahal** (41); **sortu ahal izateko** (26); **sortzen ahal** (22); **ukaiten ahal** (50); **ukatzen ahal** (23); **ulertu ahal izan** (21); **ulertu ahal izateko** (39);

ulertzen ahal (38); **utzi ahal** (46); **uzten ahal** (55); **zabaldu ahal** (28); **zehaztu ahal** (25)

ahalko dela (35); **ahalko den** (39); **ahalko direla** (23); **ahalko diren** (36); **ahalko ditu** (49); **ahalko ditugu** (34); **ahalko dituzte** (58); **ahalko du** (84); **ahalko dugu** (31); **ahalko dute** (98); **ahalko dutela** (23); **ahalko duzue** (30); **ahalko zen** (33); **ahalko zuen** (26); **baliatzen ahalko** (29); **egin ahalko** (43); **egiten ahalko** (120); **entzuten ahalko da** (28); **entzuten ahalko dira** (36); **erosten ahalko** (24); **hartzen ahalko** (70); **ikusi ahalko da** (29); **ikusi ahalko dira** (32); **ikusten ahalko da** (46); **ikusten ahalko dira** (50); **izaiten ahalko** (27); **segitzen ahalko** (33)

ahalak oro (25); **egin ahalak** (46); **zazpi ahalak** (22)

---

ahala 1 *adlag* (aditz baten era burutuaren ondoan) “bezain laster”, “-(r)en neurrian”

Erre **ahala**, baserritarraren gorputza ahitzen joan zen, harik eta bere bizitza azken garrarekin batera itzali zen arte. Martin Anso

Askotan ikusten nuen, umeek txixa egin **ahala**, mingainarekin edaten. Gotzon Garate

Su-etena eta giroa sendotu **ahala**, prentsa dosierrak naroago etorriko zaizkigu. Iñigo Aranbarri

Irudika dezagun hari bat, sendoa muturrean, luzatu **ahala**, xaretzen doana. Iñigo Aranbarri

Denborak aurrera egin **ahala**, azken ildo hori nagusitu da Itoizko Koordinakundean. Edurne Elizondo

Baina, orrialdeak pasatu **ahala**, geroz eta erantzun motzagoak nik. Jesus Mari Mendizabal

Tomas ezkertia zen, ordea, ezkerti konbentzitua izan ere, eta idatzi **ahala** eskua pasatzen zuen idatzitakoaren gainetik, eta ezabatu ere erdia ezabatzen zuen, oilaskoaren koipea zeukalako eskuan oraindik, tantaka eta erreten eliptikoetan. Unai Elorriaga

Belztasunean mozoloak tertulian, eta bihotza goxotasunez hasi zitzaidan betetzen herrira hurbildu **ahala**. Joxean Sagaztizabal

Besaulkitik altxatu eta, eskultura kendu **ahala**, sekulako zaplateko bat eman nion. Iban Zaldua

Hobeto sentitzen naiz egunak joan **ahala**. Agurtzane Juanena

Etxe aurrean, belaze handi bat: berde iluna, bi segalarik bibelarra ebaki **ahala** argitzen ari zena. Pablo Sastre

Gero, gertaera historikoak kanbiatu **ahala**, xii guztiak ez direla gaiztoak ikasi beharko dugu, mundua eta lagunak aldatu egiten baitira. Iñigo Aranbarri

Lescun herria maite zuela eta "Pic d'Antsabère" delakoa nahi zuela hurbiletik ikusi eta egin **ahala** gora joan. Piarres Aintziart

Harekin hitz egin **ahala** bururatu zaidak dena. Fernando Morillo

Egun berria hasi zuen, oroitu **ahala** aspalditik alferrik galtzen ohitua zen egun horietako bat. Matías Mujika

Baina egunek, uneek, segundoek aurrera egin **ahala** desagertzen joan zen ongizate hura, eta zuk itsaso beltz irenslearen aurrean geldirik aurkitu zenuen zeure burua, bakarrik. Eider Rodriguez

Begiak dir-dirka zekartzan; etxeko sarrerara irisi baino lehen, gerrikoa askatzen hasi zen, ohitura zuenez, ibili **ahala**. Juan Kruz Igerabide

Alkohola Tellagorriren gorputzean sartu **ahala**, agurea suspertu eta animatu egiten zen. Koro Navarro

Urteek aurrera egin **ahala**, irudipena daukat mundua geroz eta txikiagoa dela eta, aldi berean, gero eta zailagoa. Hasier Etxeberria

Hau egia den neurrian, espero daiteke hizkuntzaren beste iker-alor batzuek, garatu **ahala**, esanahi-teoriaren atal batzuk bereganatuko dituztela. Itziar Laka

Garai hartan kamiseta eramaten zuen, bat busti **ahala** lehorra aldatzeko. Pako Aristi

Kalean euria bota **ahala**, ostatuan kopak beteta. Alberto Barandiaren

Bigarren gerra mundialeko beteranoa, egun gehienak hotelaren ondoko taberna batean botatzen zituen entzun nahi zionari gerrako istorioak kontatuz, gehienetan berberak, garagardo latak hustu **ahala** begiak gorritzen eta mihia zerbait trabatzen zitzaizkiola. Iñaki Zabaleta

2 *adlag* (aditzoinaren eskuinean) ahal den beste.

Rousseauren usteak suma **ahala** erantzun jaso ditu. Bernardo Atxaga

Euria jaits **ahala** hasi zen. Ramuntxo Etxeberri

1856an Lacroix apezpikuak Deiheralde eta Hazparneko misionesten gain eman nahi izan zutela hango euskaldunen ardura, bainan jos **ahala** urratu bazuela jadanik hemengo misioneekin. Xipri Arbelbide

3 ***egin ahala egin***

Sistema aldaketak babes polita izan du udak aurrera **egin ahala egindako** fitxaketei esker. Berria - Kirola

Natorren Lazkanoren hasierako esaldira: "Bertsoa **egin ahala egiten** da ondoen.". Andoni Egaña

4 ***ezin esan ahalako***

Oi, harriek barnerik baldin badute, erakundeen arima eraikitzen dituen etxeei txertatzen baldin bazaie, nolako kolera hits eta **ezin esan ahalakoak** ikaratu behar zituen orduan oinarrietaraino horma biluzi eta gotor hauek! Koldo Izagirre

Pozezko sukar handi, **ezin esan ahalako** batek bete zidan bihotza, eta ordu batez printzea ere joan zitzaidan gogotik. Matías Múgica

Jauregiak **ezin esan ahalako** edertasun argitsua zeukan, zaldunen armez guztiz hornitua zegoen eta, gainera, horma denetan gurutze irudiz markatutako ezkutu distiratsuak zituen zintzilik. Askoren artean

Herria askatutakoan, doilor traidore guztiak konderriko kartzelara eramanak zituen, hura guztia zalditik jaitsi gabe; horrela, **ezin esan ahalako** eskuzabaltasuna erakutsiz, sherifaren alabarekin ezkondu, eta zaldi gainean abiatu ziren etorkizun itxaropentsu bati buruz. Javi Cillero

Ni urduri nengoen, **ezin esan ahalako** higuina ematen zidan gizaje hark. Koldo Izagirre

Lehenago familian behia sakratutzat bazuten, ge-roztik **ezin esan ahalako** maitasuna hartu zioten. Gotzon Garate

Eskerrak Jainkoari, beraren **ezin esan ahalako** dohain horrengatik. Elizen arteko biblia

Oinazea ez pairatzea eta torturatzaileekin kolaboratzea aukeratzen baldin baduzu, **ezin esan ahalako** oinaze morala erosten duzu. Agurtzane Juanena

5 ***ezin konta ahala***

Ulermena gainditzen duten mirariak egiten ditu, gauza harrigarriak, **ezin konta ahala**. Elizen arteko biblia

Ez dagoela lekurik **ezin konta ahala** iheslarirentzat. Joxe Austin Arrieta

Gotorleku hau **ezin konta ahala** inurrik eta zenbait soldaduk defendatua dago. Koldo Izagirre

Frantzia **ezin konta ahala** jaurerri txikitan banatuta zegoenez. Iñaki Iñurrieta

Ezin konta ahala opari zuen: Charvet musuzapiak, art moderne eiteko hautsontziak, [...]. Mirentxu Larrañaga

Hura ikusi, eta **ezin konta ahala** ahots hasi zitzaizkidan barrutik irten beharrean. Juan Kruz Igerabide

Beste gisa bereko **ezin konta ahala** herritatik. Iñaki Segurola

Ezin konta ahala ziren horrelako aldaerak. Koldo Zuazo

Ezin konta ahala izango direla historiako zuloak, etengabea anakronismoaren arriskua. Xabier Mendiguren Elizegi

6 ***ezin konta ahalako*** *izlag*

Jerusalemgo altxortegia **ezin konta ahalako** aberastasunez betea zegoela. Elizen arteko biblia

7 ***gerta ahala gerta***

Erakundea babestu behar duzu **gerta ahala gerta**. Rafa Egiguren

Gerta ahala gerta, aitorpenari eusteko prest zaude. Rafa Egiguren

8 ***jauts ahala*** *(orobat* ***jautsahala****)*

Ibiltokian sartu eta euria **jauts** ahala ari dela ohartzen naiz oraino gehiago. Filipe Bidart

Ber denboran euria hasi zen **jautsahala**. Ramuntxo Etxeberri

Ainitz tokitan, euria **jauts**-ahala eta biziki haize latza, beste batzuetan elurra. Herria

Euria **jauts** -ahala hasi zen. Daniel Landart

9 *jos ahala urratu izan* *(orobat **josahala urratu**)* du *ad ipar* egitekoez mintzatuz gainezka izan.

Hala ere badute juje horiek **jos-ahala urratu** ezen, trenkatzen dituzten baino afera gehiago jiten zaizkie mahai gainera. Herria

1856an Lacroix apezpikuak Deiheralde eta Hazparneko misionesten gain eman nahi izan zutela hango euskaldunen ardura, bainan **jos ahala urratu** bazuela jadanik hemengo misioneekin. Xipri Arbelbide

Frantzia behere hortan ere badute **jos-ahala urratu** oihan eta larre askotan suari ezin ihardokiz! Herria

Demokrazia berpizten ari Espainian eta bazuketela **jos ahala urratu** , segurrenik ere. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

10 *koka ahala*

Gizonkia zuten garraiatzen, bagoietan **koka ahala** jende sartuz, tinke tinkea. Eneko Bidegain

Gela ttiki hartan, **koka-ahala** baino jende gehiago izanez, atera nintzen. Daniel Landart

Aintzina segituz, gero, Karmelo plazan, Basarrateko plazan, **koka ahala** jende, geroagokoak geroko: bazkari, bertsulari eta mahi-joko, bakoitzak bere modukoa, dena ere Santutxuko karmenetakoak. Herria

Eliza **koka ahala** betea, ahaide eta alde guzietako adixkideak bildurik, bidarritarrak, eskolako lagunak, Larresoroko errugbilari lagunak eta bertze adixkide guziak... Herria

11 *kosta ahala kosta* *adlag*

Kosta ahala kosta, kultura hizkuntza bilakatu behar zen euskara. Badira **kosta ahala kosta** betiereko gaztetasunaren bila abiatzen direnak. Koldo Zuazo

Gutun hori **kosta ahala kosta** eskuratu behar dinat! Karlos Zabala

Ulertzen hasia zen alkateak **kosta ahala kosta** nahi zuela printzesa. Felipe Juaristi

Bezperako kapitaina aurkitu zuenean, zakuen jabea lehenbailehen eta **kosta ahala kosta** ekartzeko agindu zion. Patxi Zubizarreta

Zuhaitzek hatzak zerura altxatuak zituzten, zurezko hariak bizitzari eutsi nahi ziotenak **kosta ahala kosta** . Felipe Juaristi

Aurkitu behar diat **kosta ahala kosta** ! Karlos Zabala

Kosta ahala kosta, gora Aosta Anjel Lertxundi

12 *nahi ahala*

Ordurako bazekien dotorezia handiz negar egiten, betazalak hondatu gabe, eta **nahi ahala** . Josu Zabaleta

Horietariko batzuen gainean erran-merran franko ibiliak ziren hirian: **nahi ahala** haragi fresko omen -ez bakarrik plater barnean-, eta halaber hauts xuria nasaiki, sudur zuloen alaigarri. Aingeru Epaltza

Iritsi duk Garcia horren jauregira, berak **nahi ahala** guzia urratu, ebatsi eta sutu dik. Patziku Perurena

13 *saka ahala*

Zubi baten gainean pasatzen ari zelarik treina gertatu da hori, jendea bazelarik **saka** ahala metatua treinaren teilatu gaineraino. Herria

14 *suma ahala*

Azkenean, bukatuta jada aro erromantikoa, zabalduta hiztegi psikoanalitikoa gizarte osora, nagusituta erabat herrixka unibertsala bere txutxumutxuekin, Rousseauren usteak **suma ahala** erantzun jaso ditu. Bernardo Atxaga

Baina, bere hamar urte haiekin, maldizioak esaten zituen **suma-ahala** , zigarroak osten zizkigun, erantzun lotsagabeak ematen. Bernardo Atxaga

15 *tira ahala* *(orobat **tirahala** g.er.)* indar guztiekin, ahal den guztia.

Goizetik arrats, **tira-ahala** ari izan ginen. Daniel Landart

Barnean norbait edo norbaitzuk **tira ahala** ari dira. Aingeru Epaltza

Kanpoan euria ari zuen **tira ahala** . Berria - Euskal Herria

Atzamarrak **tira ahala** zabaltzen ditu igurtziaren eremua handitzeko. Koldo Izagirre

Ikusi nuen elkarri **tira ahala** musuka ari zirela. Janbattitt Dirassar

Erdilariaren bitartez, baloia eskuratu nuelarik, **tira-ahala** lasterka abiatu nintzen, aurkako lerroan zuloak egiten saiatuz. Daniel Landart

Gau hura goizaldeko ordu tikietan bukatu nuen, Alde Zaharreko barra amerikar batean, zutik egoteko gauza ez nintzela eta ipurdi estuko ukrainar baten istorio tristeekin **tira ahala** negarrez. Aingeru Epaltza

Platonengana konfiantza ukan dut, baina hau gaurko *people* aldizkarietako kazetarien gisa aritu zela iruditzen zait, lumak **tira ahala** , gizon handien itzalen bila. Itxaro Borda

16 *tira ahala tira* tira ahala.

Tira ahala tira lau miliun tona trafikuren marra iragan du portuak 2000 urtean. Herria

Biltagarbik karkulatua baitu bost urte barne bereizketa hein horretara helduko garela **tira ahala tira** . Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aditu ahala (6); **agertu ahala** (10); **agindu ahala** (5); **ahala ari** (21); **ahala ari eta** (4); **ahala baino** (5); **ahala bere** (11); **ahala beste** (7); **ahala betetzen** (4); **ahala desagertzen** (4); **ahala dira** (8); **ahala duen** (4); **ahala edo** (5); **ahala egiten** (9); **ahala egiten da** (5); **ahala eman** (4); **ahala ematen** (11); **ahala erredakzioa** (4); **ahala eta** (29); **ahala ez** (5); **ahala gauza** (12); **ahala gero** (25); **ahala gero eta** (25); **ahala geroz** (7); **ahala geroz eta** (7); **ahala gizon** (7); **ahala guztia** (4); **ahala guztian** (14); **ahala hasi** (4); **ahala ikusi** (5); **ahala ikusiko** (4); **ahala izan** (7); **ahala izango** (5); **ahala jende** (7); **ahala jo** (5); **ahala joan** (6); **ahala konturatu** (7); **ahala kosta** (215); **ahala kosta eutsi** (4); **ahala kosta irabazi** (4); **ahala kosta lortu** (4); **ahala kosta nahi** (4); **ahala kosta saihestu** (4); **ahala laster** (5); **ahala liburu** (4); **ahala luzaz** (4); **ahala sortzen** (5); **ahala ukan** (6); **ahala urratu** (8); **ahala urrun** (4); **ahoak eman ahala** (11); **aitzina egin ahala** (4); **aitzina joan ahala** (5); **aldatu ahala** (14); **aldendu ahala** (5); **areagotu ahala** (10); **askatu ahala** (4); **asteak igaro ahala** (5); **atera ahala** (8); **aurkitu ahala** (5); **aurrera ahala** (9); **aurrera egin ahala** (299); **aurrera joan ahala** (99); **aurreratu ahala** (17); **azaldu ahala** (5); **barneratu ahala** (9); **begiratu ahala** (6); **bere ahala** (7); **berotu ahala** (5); **bertsoa egin ahala** (4); **bete ahala** (8); **bidea egin ahala** (4); **bihurtu ahala** (7); **bildu ahala** (4); **bizitzeko ahala** (7); **bota ahala** (13); **bukatu ahala** (7); **denbora aurrera ahala** (4); **denbora igaro ahala** (16); **denbora joan ahala** (18); **denbora pasa ahala** (9); **denbora pasatu ahala** (14); **desagertu ahala** (6); **dute egin ahala** (6); **edan ahala** (4); **edo ahala** (6); **egin ahala** (454); **egin ahala bere** (6); **egin ahala egiten** (4); **egin ahala eta** (6); **egin ahala gero** (7); **egin ahala guztian** (8); **egin ahala laster** (5); **egin ahala luzaz** (4); **egiteko ahala** (6); **eguna hurbildu ahala** (10); **egunak igaro ahala** (8); **egunak joan ahala** (11); **egunak pasa ahala** (4); **egunak pasatu ahala** (10); **eman ahala** (53); **eman ahala guztian** (5); **entzun ahala** (17); **erabakitzeko ahala** (5); **erakutsi ahala** (4); **erori ahala** (7); **erre ahala** (4); **erretiratu ahala** (4); **esan ahala** (20); **eskatu ahala** (7); **eta ahala** (6); **eta egin ahala** (4); **eta kosta ahala** (7); **etorri ahala** (17); **etxera hurbildu ahala** (4); **euria bota ahala** (5); **euria jauts ahala** (15); **ezagutu ahala** (12); **ezin ahala** (19); **ezin esan ahala** (4); **ezin konta ahala** (155)

finkatu ahala (4); **galdu ahala** (11); **garatu ahala** (7); **gauzatu ahala** (5); **gehitu ahala** (5); **gertatu ahala** (5); **gerturatu ahala** (17); **gogoak eman ahala** (5); **gora egin ahala** (17); **gutxitu ahala** (5); **handitu ahala** (13); **harrapatu ahala** (4); **hartu ahala** (17); **hartzeko ahala** (6); **hasi ahala** (9); **hazi ahala** (18); **hedatu ahala** (8); **heldu ahala** (14); **hitz egin ahala** (22); **hobetu ahala** (5); **hura kosta ahala** (6); **hurbildu ahala** (111); **hurreratu ahala** (8); **hustu ahala** (8); **ibili ahala** (11); **idatzi ahala** (14); **igaro ahala** (55); **igo ahala** (19); **ikasi ahala** (7); **ikus ahala** (6); **ikusi ahala** (10); **indartu ahala** (5); **inguratu ahala** (8); **iragan ahala** (8); **irakurri ahala** (31); **irentsi ahala** (5); **iritsi ahala** (23); **irten ahala** (9); **izan ahala** (7); **jaiki ahala** (4); **jaitsi ahala** (15); **jakin ahala** (6); **jarraitu ahala** (10); **jaso ahala** (9); **jauts ahala** (15); **jauts ahala ari** (7); **jo ahala** (12); **jo ahala jo** (4); **joan ahala** (205); **joan ahala gero** (5); **joan ahala geroz** (5); **jokatu ahala** (19); **jos ahala** (8); **jos ahala urratu** (8); **kendu ahala** (5); **koka ahala** (14); **koka ahala jende** (4); **konta ahala** (157); **konta ahala dira** (7); **konta ahala gauza** (7); **konta ahala gizon** (5); **konta ezin ahala** (12); **kontatu ahala** (9); **kosta ahala** (217); **kosta ahala kosta** (213); **lortu ahala** (5); **luzatu ahala** (23); **minutuak pasatu ahala** (6); **moztu ahala** (4); **mugitu ahala** (5); **murgildu ahala** (5); **nahi ahala** (6); **nola edo ahala** (5); **ohitu ahala** (4); **onartu ahala** (4); **orduak pasatu ahala** (6); **osatu ahala** (4); **partida luzatu ahala** (9); **partidak jokatu ahala** (10); **pasa ahala** (27); **pasatu ahala** (60); **sartu ahala** (34); **sendotu ahala** (4); **sortu ahala** (11); **tira ahala** (22); **ugaritu ahala** (11); **ukitu ahala** (5); **urrundu ahala** (22); **urteak igaro ahala** (11); **urteak joan ahala** (12); **urteak pasa ahala** (5); **urteak pasatu ahala** (7); **utzi ahala** (5); **zabaldu ahala** (18); **zahartu ahala** (10); **zihoan ahala** (7); **zuen kosta ahala** (6)

ahalako ardi (3); **ahalako intziriz** (3); **ahalako poztasuna** (3); **esan ahalako** (15); **esan ezin ahalako** (31); **ezin ahalako** (34); **ezin ahalako poztasuna** (3); **ezin esan ahalako** (15); **ezin konta ahalako** (11); **ezin zenbatu ahalako** (4); **konta ahalako** (11); **zenbatu ahalako** (4)

---

ahalako ik **ahala**.

---

ahalara *adlag* ahal den moduan.

Eta hala ibiltzen zen hura, handiak bezala, nahikara, eta ni, tipiak bezala, **ahalara**. Joan Mari Irigoien

---

ahalaz *adlag ipar* ahal den neurrian.

Nik, gauzak konpondu nahi ditinat, **ahalaz** denak lagunduz. Daniel Landart

Saskiak hustuak zirenean, ostatura joaten zen, beti berera, eliza ondokora, eta haragia eskatzen zuen, **ahalaz** bildotskia, edo hura ezean, aratxekia edo txerrikia. Elena Touyarou

Eta **ahalaz**, gozatu. Daniel Landart

Zitziari dagokionez, etxekoa izan edo auzokoa hormonarik eta abere irinik gabeko jaten dute, **ahalaz** supermerkatuko ataletan Eusko Label urguilutsua erakusten duena. Itxaro Borda

Harremanak hasi, adiskideak egin, **ahalaz**, baina bakoitzak bizirik irauteko borroka zeraman. Marzel Etxehandi

Euskal Herrian, bereziki Bizkaian, ohitura edo usaia zen, aspaldidanik, biltzarren egitea arbola baten pean, **ahalaz** haritza. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hiztegi on bat baitezpadakoa da mahai gainean, eta **ahalaz** biga edo hiru, elgarren artean konparaketen egiteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalaz denak (4); **ahalaz ez** (4); **ahalaz hein** (3); **ahalaz laborantxa** (5); **ahalaz laborantxa kudeantzari** (5); **egin ahalaz** (3); **eta ahalaz** (19); **eta nihundik ahalaz** (9); **gabe ahalaz** (4); **nihundik ahalaz** (39)

---

ahalbailehen *adlag* lehenbailehen. ik **albailehen**.

Gotorlekua inguratzeari utzi eta Ptolemaidara berarekin mintzatzera **ahalbailehen** etortzeko aginduz idatzi zion Jonatani. Elizen arteko biblia

Bitartean, Jerusalemgo gotorlekukoek mezulariak bidali zizkioten Trifoni, basamortuan zehar, **ahalbailehen** beraiengana joateko eta janaria eramateko eskatuz. Elizen arteko biblia

---

ahalbait ik **albait**.

---

ahalbaitean ik **albaitean**.

---

ahalbaitlehen ik **ahalbailehen**.

---

ahalbide 1 *iz* norbaitek edo zerbaitek ahal duen gauza.

Erabiliko ditugu Europak dituen legezko **ahalbide** guziak, bai eta estatuen arteko hitzarmen eta tratatuak, Ipar/Hego elkarlana ahalik eta urrunenera eramateko. Herria

Ez nituen albora utzi hizkuntza unibertsalak; aztertu nituen esperantoaren nondik-norakoak [...] eta volapük-arenak, zeinak hizkuntz **ahalbide** guztiak ikertu nahi dituen, aditzak deklinatuz eta sustantiboak jokatuz. Juan Garzia

Egia da **ahalbide** honekin gaitza ere aukeratu eta bekatu egin dezakegula, baina egia da, halaber, aukeratzeko askatasunik gabe ezingo genukeela ikuspuntu moraletik portaera onik izan. Imanol Unzurrunzaga

Zalantzarik gabe, **ahalbide** asko dituzten taldeek bakarrik egin diezaiokete aurre halako eginahal eta diru desafiori. Berria - Kirola

Ohiko estatu-nazioek beren subiranotasunaren **ahalbide** asko goragoko erakundeen eskuetan utzi dituzte. Piarres Xarriton

Herri zuhur eta zentzudunari bere agintariak aukeratzeko **ahalbide** ematea. Imanol Unzurrunzaga

2 (izenondoekin)

Ahalbide berriak sortu dituzte, eskolak ideki. Herria

Behar direla funski euskal hizkuntza erabiltzeko **ahalbide** konkretuak bidean ezarri, bereziki gazteeri buruz.Ideia hor dago, muntatzeko **ahalbide** teknikoak ere hor dira, falta da sostengu ekonomiko publikoa. Herria

Natura sozializatzeko (edo suntsitzeko) **ahalbide** tekniko-zientifikoak berak bultzatzen du bere desagerpen edo moldaketa soziala. Berria - Gaiak

Gero, lekua eskainiko duen herriak beharko ditu ordainez **ahalbide** ekonomikoak eskuratu. Herria

Beti deskribatzen dira diskurtso-eremu mugatuetan, eta ez zaizkie aitortzen hasieran hedapenerako **ahalbide** mugagabeak. Xabier Arregi

Osakidetzako 224 langilek idazki bat sinatu dute, EAE Euskal Autonomia Erkidegoan anorexia, bulimia eta bestelako elikadura desorekak dituzten gaixoei "kalitateko zerbitzua" eskaintzen zaiela eta horretarako **ahalbide** egokiak daudela esanez. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan)

Adituen ustez, Libiak ez du suntsipen arma programak garatzeko behar beste diru **ahalbide**. Berria - Mundua

Donapaleuko egitura berri hori Pauekoaren azpi-egitura bat baizik ez da izanen, erabaki **ahalbide** guttirekin. Herria

Gehiago dago "erreferentzial" bati lotuta, eta hau ez dago gauzez, egitez, errealitatez edo "izakiz" osatuta, baizik eta **ahalbide**-legeez eta existentzia-arauez. Xabier Arregi

4 ***ekoizpen ahalbideen muga*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Mikroekonomian, **ekoizpen ahalbideen muga**, labur EAM ere deitua, bi produkturen kopuruak lotzen dituen grafiko bat da, ekoizpen-faktoreen kopuru finko batekin ekoitzi daitezkeenak. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalbide gehiago (4); **ahalbide guztiak** (3); **ahalbidea ematen** (3); **ahalbideen arabera** (3); **ahalbiderik ez** (7); **ahalbiderik ez duenak** (3); **ahalbiderik gabe** (3); **bere ahalbideak** (7); **beren ahalbideen** (3); **dituen ahalbideak** (3); **erosteko ahalbiderik** (5); **erosteko ahalbiderik ez** (4)

---

ahalbideratu, ahalbidera(tu), ahalbideratzen du *ad* ahalbidetu.

Isabel I. erreginaren aginduz, 12 behatoki nagusiren muntaia **ahalbideratu** zen. Pello Zabala

Proiektuak zehatzago lan egitea **ahalbideratuko** digu, eta hori beharrezkoa da, kulturan diru publikoarekin ari garenon artean, batez ere. Berria - Kultura

Lortu behar duguna da bide baketsu eta demokratikoen bidez egitasmo politiko ezberdinen garapena **ahalbideratuko** duen prozesu bat abian jartzea. Berria - Euskal Herria

Berdintasun Legea onartzeko balio izan ez arren, behintzat talde politikoen jarrera argitzea **ahalbideratu** zuen atzo arratsaldeko saioak. Berria - Harian

Notarioen jardunek eta euskal herritarren jaidurek luzaroan **ahalbideratu** zuten, Code Civil horren azpian, baserriak oso-osorik zaintzea, ezkontza kontratuak eta oinordeko bakarraren izentazioa tartean zirela. Andres Urrutia

Hitzaren barruan silabak eta letra multzoak errepikatzen diren bezalaxe, hitzen arteko kontaktuak ere errepikapena **ahalbideratzen** du. Iñaki Arranz

Zer **ahalbideratzen** du zehazki Europako Batasunak? Berria - Ekonomia

Utopiaren abenturak gizakiago egiten gaituen aldi berean, El Doradokoak aberetu egiten gaitu, Colonek -giza irrikak- deskubritutakoa konkistatu behar pragmatiko bezain basatia **ahalbideratzeko** asmatzen baitira urrearen inguruko sineskeria eta fabulak. Anjel Lertxundi

Bide estu eta meharra, horratio, dibortzioari **ahalbideratzen** zaiona. Andres Urrutia

Berezko harreman horiek **ahalbideratzen** dute herri baten nortasuna eta eitea ez galtzea. Andres Urrutia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalbideratu zuen (7)

ahalbideratuko duen (3); **horrek ahalbideratuko luke** (3)

ahalbideratzen du (4); **ahalbideratzen dute** (4)

---

ahalbidetu, ahalbide(tu), ahalbidetzen du *ad* ahalgarria egin, posible egin.

Biktimena arazorik korapilotsuena da, hain zuzen ere ez dagoela erabakirik haiek galdu dutena berreskuratzea **ahalbide** dezakeenik; dena dela ere, bakea eta berradiskidetzea erraztu dezaketen eragileak direla gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Bi parlamentarik baiezkoa eta beste lauek ezezkoa emanda, Plana onartzea **ahalbide** lezakeela Batasunak, alegia, jarrera kritikoari eutsiz. Berria - Euskal Herria

Diktaduratik demokraziara pasatzea **ahalbidetu** zuen 'Krabelinen Iraultza' ez zen erabat gauzatu. Berria - Mundua

Kroniketan nahiko oharkabe igaro zen xehetasun bat nabarmendu nahi dut hemen, bera izan baitzen populazioaren erreakzioa **ahalbidetu** zuen giltza. Txema Ramirez de la Piscina

Iraultza mikroelektronikoak -hots, informatizazioak, automatizazioak edota errobotizazioak- produkzio modu berriak **ahalbidetu** ditu: ordenagailuz lagundutako diseinua eta ekoizpena (CAD/CAM sistemak), makina-lanabes automatizatua, edota *just in time* produkzioa, besteak beste. Iñaki Heras

Bi faktore nagusik **ahalbidetu** dute finantza merkatuek bizi izan duten globalizazio prozesu bortitza. Iñaki Heras

Legeek **ahalbidetuko** dute hain arazo larria konpontzen lagun dezagun. Berria - Euskal Herria

Madrilen UCDk **ahalbidetu** zuen aldaketa. Berria - Euskal Herria

Hori baita sexuen arteko parekidetasuna **ahalbidetuko** duen bidea; zapalkuntzari aurre egin eta diskriminazioan oinarrituko ez den gizarte eredu bat sortzeko modua. Berria - Euskal Herria

"Demokrazia **ahalbidetuko** duen" proiektua proposatu du Batasunak. Berria - Euskal Herria

Prozesua eta bere irtenbidea sendotzeko hiritar guztien parte hartzea **ahalbidetuko** duten berme demokratikoak ezartzearen alde lan egingo dugu. Berria - Euskal Herria

Estatutu hori **ahalbidetutako** "adostasuna" berreskuratu nahi dute, eta, horretarako, berritu egin nahi dute. Berria - Euskal Herria

Bat-batean konstituzioari buruz zerbait entzunda, esan du Zapaterok sekulako hankasartzea egin duela Gibraltarren erreforma konstituzional "arriskutsua" egitea **ahalbidetuta**, Gibraltar Espainiako parte balitz bezala. Berria - Mundua

Merkatuaren gardentasuna **ahalbidetzen** du Internetek. Berria - Gaiak

Aurrera eta atzera eta alde batera eta bestera nahikoa mugitzen uzten dute giltzadura horiek; errotazio labur bat ere **ahalbidetzen** dute. Irene Aldasoro

Aurtengo lehiaketa sistemak **ahalbidetzen** ditu horrelakoak. Berria - Kirola

Ahalmen global edo integratzaile horrek **ahalbidetzen** dizkigu generalizatzea eta gogoeta egitea eta, orobat, subjektibitatea eta bere buruaz jabetzen den ni bat garatzea. Xabier Olarra

Merkatua baita, norbanakoak bere interes propioari jarraituz, interes orokorraren alde lan egitea **ahalbidetzen** duen mekanismoa. Iñaki Heras

Espazioak soilik **ahalbidetzen** du gauzak kanpoko objektuak izatea. Ibon Uribarri

EHUn, badira oraindik euskarazko taldea irekitzea **ahalbidetzen** ez duten ikasleen kopuru txikiak, lurraldeetan eskaintza bikoiztua edo hirukoiztua duten ikasketxeetan batez ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egun, Estatua da hedabide ororen jabe ofiziala, baina iaz inbertsio pribatuak **ahalbidetzeko** egitasmoak abiatu zituen Gobernuak. Berria - Gaiak

Udaletxea asteburu osoan irekita egongo da ezkontzak **ahalbidetzeko**. Berria - Gaiak

Garrantzitsua izango litzateke planteatzea nola bultzatu gizadiaren alderdi positiboak eta nola bultzatu komunitateak eta bere gizarte zein instituzio egiturak, elkarbizitza bakezkoago eta orekatuago bat **ahalbidetzearren**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Garuna, makinaren kontrolgunea jatorriz, pentsamendu abstraktua, sormen artistikoa eta, oro har, jarduera mental sofistikatu erregular edo jarraitua **ahalbidetzeraino** garatu da. Irene Aldasoro

Garrantzitsua izango litzateke planteatzea nola bultzatu gizadiaren alderdi positiboak eta nola bultzatu komunitateak eta bere gizarte zein instituzio egiturak, elkarbizitza bakezkoago eta orekatuago bat **ahalbidetzearren**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalbidetu behar (12); **ahalbidetu behar du** (7); **ahalbidetu beharko** (3); **ahalbidetu dio** (3); **ahalbidetu ditu** (3); **ahalbidetu du** (22); **ahalbidetu duen** (7); **ahalbidetu dute** (11); **ahalbidetu egiten** (3); **ahalbidetu ez** (4); **ahalbidetu nahi** (3); **ahalbidetu zien** (4); **ahalbidetu zion** (8); **ahalbidetu zuen** (39); **ahalbidetu zuten** (5); **ahalbidetuko ditu** (3); **ahalbidetuko dituen** (7); **ahalbidetuko dituen erreforma** (3); **ahalbidetuko du** (19); **ahalbidetuko duela** (11); **ahalbidetuko duen** (33); **ahalbidetuko dute** (5); **ahalbidetuko duten** (12); **ahalbidetuko luke** (6); **ahalbidetuko lukeen** (6); **ahalbidetuko zuen** (4); **ahalbidetzen badu** (3); **ahalbidetzen baitu** (8); **ahalbidetzen da** (3); **ahalbidetzen die** (9); **ahalbidetzen digu** (4); **ahalbidetzen digun** (3); **ahalbidetzen dio** (6); **ahalbidetzen diona** (3); **ahalbidetzen ditu** (6); **ahalbidetzen dituela** (3); **ahalbidetzen dituen** (13); **ahalbidetzen dituena** (6); **ahalbidetzen dituzte** (4); **ahalbidetzen ditzuten** (7); **ahalbidetzen du** (42); **ahalbidetzen duela** (14); **ahalbidetzen duelako** (8); **ahalbidetzen duen** (75); **ahalbidetzen duen inkomunikazioa** (3); **ahalbidetzen duen lege** (3); **ahalbidetzen duen legeria** (4); **ahalbidetzen duen sistema** (3); **ahalbidetzen duena** (15); **ahalbidetzen dute** (15); **ahalbidetzen dutela** (5); **ahalbidetzen duten** (42); **ahalbidetzen duten legeak** (4); **ahalbidetzen dutenak** (4); **ahalbidetzen eta** (5); **ahalbidetzen ez** (6); **ahalbidetzen zuen** (11); **aukera ahalbidetu** (3); **aurrera egitea ahalbidetuko** (3); **bat ahalbidetzeko** (3); **bat egitea ahalbidetzen** (3); **berak ahalbidetzen** (3); **berrietan sartzea ahalbidetuko** (3); **biltzea ahalbidetu** (3); **dezan ahalbidetu** (3); **du ahalbidetzen** (3); **egitea ahalbidetu** (9); **egitea ahalbidetuko** (10); **egitea ahalbidetzen** (13); **egitea ahalbidetzen duen** (4); **egotea ahalbidetzen** (3); **ematea ahalbidetuko** (3); **ematea ahalbidetzen** (3); **erabiltzea ahalbidetzen** (3); **eramatea ahalbidetuko** (3); **ere ahalbidetu** (3); **ere ahalbidetzen** (6); **ez du ahalbidetzen** (3); **ezkontzak ahalbidetuko** (3); **ezkontzak ahalbidetuko dituen** (3); **gainditzea ahalbidetuko** (4); **gainditzea ahalbidetuko duen** (3); **gatazkaren konponbidea ahalbidetzeko** (3); **gauzatzea ahalbidetzen** (3); **gertatzea ahalbidetu** (3); **hartzea ahalbidetu** (8); **hartzea ahalbidetu behar** (3); **hartzea ahalbidetuko** (8); **hartzea ahalbidetzen** (3); **hori ahalbidetzeko** (6); **hori ahalbidetzen** (5); **horrek ahalbidetu** (5); **horrek ahalbidetuko** (5); **horrek ahalbidetuko du** (3); **horrek ahalbidetzen** (7); **inkomunikazioa ahalbidetzen** (4); **inkomunikazioa ahalbidetzen duen** (3); **izatea ahalbidetu** (7); **izatea ahalbidetuko** (4); **izatea ahalbidetzen** (10); **izatea ahalbidetzen duen** (3); **izatea ahalbidetzen duten** (3); **jarraitzea ahalbidetzen** (4); **joatea ahalbidetzen** (4); **konponbidea ahalbidetzeko** (3); **legeak ahalbidetzen** (7); **lehen lehenik ahalbidetzen** (5); **lehenik ahalbidetzen** (6); **nola ahalbidetzen** (4); **osatzea ahalbidetuko** (3); **parte hartzea ahalbidetu** (8); **parte hartzea ahalbidetuko** (5); **parte hartzea ahalbidetzen** (3); **sartzea ahalbidetuko** (3); **sartzea ahalbidetuko duela** (3); **sartzea ahalbidetzen** (3); **sistemak ahalbidetzen** (3); **soilik ahalbidetzen** (7); **sorrera ahalbidetu** (4); **sorrera ahalbidetu zuen** (4); **sorrera ahalbidetzen** (4); **sortzea ahalbidetzen** (4); **tortura ahalbidetzen** (22); **tortura ahalbidetzen duen** (8); **tortura ahalbidetzen duten** (9); **torturak ahalbidetzen** (7); **torturak ahalbidetzen dituena** (3)

---

ahaldudantxo *iz* ahal dudan gauzatxoa.

Ideia handiak eskaintzera nator: jendeak entzungo ditu eta gogoeta egingo du horien gainean; denak ez dira onartuak izango, baina batzuek behintzat iraungo dute; horrela, nire **ahaldudantxoa** eskainiko diot argien garapenari, eta horrekin pozik izango naiz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

ahaldun *(orobat **aldun** g.er.)* **1** *iz* herriak Diputaziorako, Batzar Nagusietarako, edo Legebiltzarrerako hautatu duen ordezkaria. ik **diputatu**.

Gipuzkoako **ahaldunaren** esanetan, "ez dago baldintza objetiborik halako dinamikei eusteko". Berria - Euskal Herria

Joaquin Villa Berrikuntzarako eta Ezagutzaren Gizarterako **ahaldunak** enpresentzat atzerrian inbertsioak egitea garrantzitsua dela azpimarratu du. Berria - Ekonomia

Juan Jose Mujika Gipuzkoako Ogasuneko **ahaldunak** herrialdeko Zerga Arau berria aurrekoa baino "gogorragoa" izango dela ohartarazi zuen atzo prentsaurrekoan. Berria - Ekonomia

Azkenik, Erriberagoitiko Udalari informazio zehatzagoa emateko konpromisoa hartu zuen atzo Rodolfo Saenz de Ugartek, Arabako Garraio eta Herri Lan Saileko **ahaldunak**. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako **Ahaldun** Nagusi Joxe Joan Gonzalez Txabarrik "arduragabetzat" jo du Espainiako Sustapen Ministerioko eledun Benigno Blanco. Berria - Harian

Ramon Rabanera Arabako **ahaldun** nagusiak atzo adierazi zuenez, Eusko Jaurlaritzaren Estatutu Proposamenak Diputazioen foru eskumenak "urratu" egiten ditu, lurralde historikoen eskubideak "urratzen" dituelako. Berria - Kultura

Hainbat bider egin diegu batzeko eskaera lehendakariari, **ahaldun** nagusiari eta herriko alkateari, eta inoiz ez dugu erantzunik jaso. Berria - Euskal Herria

Epe batez Gipuzkoako **ahaldun** nagusi izan zen gizona "ahanzturan geratu da", Aginagalderen ustez. Berria - Kultura

Maiestate:, Erregearen estatus eta titulua, Amerika errepublikazaleko ordena antzinako eta ohoragarrietako Maisu Goren, Goi Kantziller, Incohone Handi eta **Ahaldun** Inperial Nabarmenenek mesprezu bidezkoz begiratua Xabier Olarra

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Federico Berastegi Kultura **ahaldun** eta Artiumeko batzordeko buruak eta Javier Gonzalez de Durana zuzendariak agerraldia izan zuten Arabako Biltzar Nagusietan. Berria - Kultura

Ogasun **ahaldunak** zehaztu zuenez, iaz gutxienez 18.800 euroko mozkin gordinak eduki zituztenek bakarrik egin beharko dute aitorpena. Berria - Ekonomia

Bilboko Erakustazokako presidente Iñaki Irustak eta Sabin Arana Bizkaiko Enplegu eta Prestakuntza **ahaldunak** aurkeztu zuten azoka. Berria - Ekonomia

Bizkaiko Enplegu eta Formakuntza **ahaldunak**, Julio Artetxek. Berria - Ekonomia

Datozen hamabost egunetan egoera errepikatzea "oso kezkagarria" dela ohartarazi du Eloy Lopez de Foronda Nekazaritza **ahaldunak**. Berria - Ekonomia

Gasteizko epaile batek *La Zeta de Gasteiz* aldizkariaren editorea 1.080 euroko isuna eta Ramon Rabanerari 12.020 euroko indemnizazioa ordaintzera zigortu zuen aipatu argitalpenak Arabako Foru **Ahaldun** Nagusia iraindu eta haren ospea zikindu omen zuelako. Txema Ramirez de la Piscina

Giza ale interesgarria zen: alegia, Autoritatearen jabe xuxen izan gabe haren ordezkari diren aldetik, hala nola sakristauak, museoetako zizeroneak, bedelak, erizainak, abokatuen eta notarioen "hurrengo" direlakoak, merkataritza-**ahaldunak**. Juan Garzia

4 *izond/iz* ahala duena.

Munduko argitaletxe **ahaldunenek** beti baitaukate norbait (scouter bat) hiriburu literario handienetan bertan argitaratzen den produkzioa galbahetik pasatu eta nazioarteko best-seller-aren kutsua izan dezakeen oro segituan bere merkatura inportatzeko. Berria - Kultura

Berdin baitzen zer alderdik, zer enpresak edo zein familia **ahaldunen** arteko interes-uztarketak lagundu zioten unean uneko kargura igotzen. Jon Alonso

-Ez dut ez holakorik egingo, nire jaun hori -Santxok erantzun-; berori bezalako nagusi **ahalduna** izanik batez ere, berorrek jakingo baitu, niri ongi datorkidan eta nik ahal dezakedan hura guztia ematen. Patxi Ezkiaga

Familia noble eta **ahaldunak**. Pello Zabala

Euskal-Herriak behar ditu gazte suhar eta **ahaldunak**, gaur beren aintzinekoekin biharko herria eraiki dezaketenak. Herria

-Egia... ez dudala anitz jan azken denbora hauetan, baina... gorputz politagoa dut, eta menturaz orain gizongai bat aurkituko dut, **ahalduna**. Elena Touyarou

Senarra **ahalduna** duk aterki-enpresa batean, eta emazteak arropa-saloi bat zeukak. Anton Garikano

Gero, galdetu zion ea bazuen eroste-agiria sinatzeaz eta gainerako eginbideez ardura zitekeen **ahaldunik** edo ezagunik hirian. Jose Morales

Ahaldunen etxea ere, beren ideiekin errepublika gobernatzen dutenen etxea, erabilera kontuan hartuz egingo da. Santiago Iruretagoiena

Txitxikovek, **ahaldun** baitzen afera hartan, guztien borondate ona irabazi zuen aldez aurretik (gauza jakina da ez dagoela ziurtagiririk arruntena edo zuzenketarik txikiena ere lortzerik zenbaiten borondatea aurretiaz irabazi ezean, nahiz eta, horretarako, botila bete Madeirako ardo isuri behar eztarri bakoitzera). Jose Morales

Lagun katolikoek, haren exakzioen sastada pertsonalki zein **ahaldunen** bitartez hartzen zutenean, hitz garratzak erabiltzen zituzten haren kontra. Irene Aldasoro

Herri aberatsenen baitan ere, **ahaldunen** eta gabezian direnen artean urrakoa handitzen ari da. Herria

Berdin baitzen zer alderdik, zer enpresak edo zein familia **ahaldunen** arteko interes-uztarketak lagundu zioten unean uneko kargura igotzen. Jon Alonso

Grezia -non errusiarrak Sobietar Batasunaren eta Estatu Batuen artean gerraosteko gerra deklaratu gabean izan baitziren menderatuak, bi aldeetako borrokalariak atzerriko gerrarien greziar **ahaldunak** izan zirelarik. Iñaki Mendiguren

Hunek ez du onartzen bere ekonomiaren harat hunatetan legea egin dezoten mundu guzian hedatuak diren enpresa guziz **ahaldunek**. Herria

Hark Jainko guziz **ahaldunaren** kolerazko oldez hanpatu ardo-ontzia aztalkatzen baitu. Itxaro Borda

Enperadore guztiz **ahaldunaren** alde aritzeagatik. Felipe Juaristi

Jainkoa guztiz **ahalduna** zen, dena ikusiko, dena entzun, dena jakingo zuen. Joseba Sarrionandia

4 ***ahaldun nagusi***

Eusko Jaurlaritzaren Estatutu Berrirako Proposamena eta Gipuzkoan aurkeztu diren hainbat egitasmo izan zituen hizpide **ahaldun nagusiak** Gipuzkoako Batzar Nagusien politika orokorrari buruzko eztabaidan. Berria - Euskal Herria

Arabako **ahaldun nagusi** Ramon Rabanerak "Eusko Jaurlaritzarekin izan duten eskuzabaltasun bera» eskatu die Arabako sozialistei aurrekontuan aurrera atera ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Bileraren bezperan, atzo, Naval ontzioletako sindikatuetako ordezkariak Bizkaiko **Ahaldun Nagusi** Jose Luis Bilbaorekin elkartu ziren, Sestaoko ontziolen etorkizuna aztertzeko. Berria - Ekonomia

Duela bost urte izandako negoziazioetan tirabira latzak izan zituzten Ramon Rabanera **ahaldun nagusiak** eta Idoia Zenarrutzabeitia lehendakariorde eta Ogasun sailburuak. Berria - Ekonomia

5 ***merkataritza-ahaldun***

Nolabaiteko bikariotzan diharduten oro bezala, giza ale interesgarria zen: alegia, Autoritatearen jabe xuxen izan gabe haren ordezkari diren aldetik, hala nola sakristauak, museoetako zizeroneak, bedelak, erizainak, abokatuen eta notarioen "hurrengo" direlakoak, **merkataritza-ahaldunak**. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahaldun nagusi (75); **ahaldun nagusi izan** (6); **ahaldun nagusi jose** (13); **ahaldun nagusi joxe** (24); **ahaldun nagusi ohi** (3); **ahaldun nagusi ohiak** (4); **ahaldun nagusi ramon** (14); **ahaldun nagusia** (40); **ahaldun nagusia eta** (6); **ahaldun nagusiak** (92); **ahaldun nagusiak adierazi** (3); **ahaldun nagusiak atzo** (5); **ahaldun nagusiak eta** (9); **ahaldun nagusiaren** (24); **ahaldun nagusiaren arabera** (4); **ahaldun nagusiaren esanetan** (3); **ahaldun nagusiaren ustez** (4); **ahaldun nagusiari** (8); **arabako ahaldun** (46); **arabako ahaldun nagusi** (16); **arabako ahaldun nagusia** (7); **arabako ahaldun nagusiak** (16); **arabako ahaldun nagusiaren** (5); **arabako ahaldunak** (3); **arabako ogasun ahaldunak** (3); **atzo gipuzkoako ahaldun** (4); **bilbao ahaldun** (8); **bilbao ahaldun nagusiak** (7); **bilbao bizkaiko ahaldun** (16); **bizkaiko ahaldun** (38); **bizkaiko ahaldun nagusi** (16); **bizkaiko ahaldun nagusia** (5); **bizkaiko ahaldun nagusiak** (15); **eta ahaldun** (5); **gipuzkoako ahaldun** (87); **gipuzkoako ahaldun nagusi** (28); **gipuzkoako ahaldun nagusia** (19); **gipuzkoako ahaldun nagusiak** (27); **gipuzkoako ahaldun nagusiaren** (7); **gonzalez txabarri ahaldun** (5); **kultura ahaldun** (3); **luis bilbao ahaldun** (8); **nekazaritza ahaldunari** (4); **ogasun ahaldun** (3); **ogasun ahaldunak** (7); **rabanera ahaldun** (6); **rabanera ahaldun nagusiak** (3); **rabanera arabako ahaldun** (18); **ramon rabanera ahaldun** (5); **txabarri ahaldun** (6); **txabarri ahaldun nagusiak** (3); **txabarri gipuzkoako ahaldun** (42); **zuen ahaldun** (7); **zuen ahaldun nagusiak** (6); **zuen bizkaiko ahaldun** (3)

---

ahaldundu, ahaldun(du), ahalduntzen *(corpusean ez dago; ETCn **1.899** agerraldi, horietatik **1.786** azken sei urteetan)* **1** da/du *ad* norberak bere buruari ahalmena aitortu; zuzenbidean, norbaitek beste inori zerbait egiteko ahalmena eman.

Ulertu duenean makillajearekin kamufla litekeela, halaber ulertu du **ahalduntzeko** modu bat ere badela. ETC-literatura, saiakera

Norbera **ahalduntzetik** besteekin negoziatzen eta elkarlana egiten jakitea da kolektiboa gure kasuan. ETC-literatura, saiakera

Itzel pozten naiz dagoeneko geure-geure izen-abizenekin sina dezakegulako, ez dakit noren andrea baino gehiago garela jakiteak **ahalduntzen** nau. ETC-literatura, saiakera

Hori horrela, zergatik ez ikusi isiltasuna (k) **ahalduntzeko** bide edo modu bezala? ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikaslea ez da bere ikasketa prozesuaren jakitun, hots, ez du ikaslea **ahalduntzen** ikasketa prozesuan zehar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azkenik, Zero zabor estrategiaren oinarrizko alderdi bat (maiz amaieran jartzen dugu, baina filosofia honen helburu nagusietako bat dela ere esan genezake) herritarrak **ahalduntzeko** duen gaitasuna da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Espiritu berritzailea eta abangoardiakoa izan du, eta lehen urteetan oso ondo bete zuen emakumeak sozialki **ahalduntzeko** helburua, elkarteak bultzatuz. ETC-prentsa

Eritasuna onartzeko urratsak egitea zailtzen du egoera horrek, eta gaitza duena **ahalduntzeko** prozesuari ez dio inolako mesederik egiten", erantzun dio. ETC-prentsa

"Euskahaldundu!" leloa erabilita, euskararen alde "**ahalduntzeko**" deia egingo dute 11 egunez. ETC-prentsa

Ez da gizarte bazterketaren teoria bat, baizik eta agente bihurtzearen eta **ahalduntzeko** gaitasunaren ingurukoa: norberarentzat idatzitako gidoi horretatik ateratzeko aukera badago, norbere baldintzez ohartuz gero. ETC-prentsa

Era globalean, **ahalduntzerik** gabe, lurralde baten gaineko agintea izan gabe ezin delako estaturik eratu. ETC-prentsa

Trantsizio hori gutxi batzuen esku utz dezakegu, orain arte bezala, eredu zentralizatu baten barruan, edo aukera baliatu herritarrak **ahalduntzeko**. ETC-prentsa

"Gainera, jarraitu behar dugu emakumeak **ahalduntzen**, haien aurkako ekintza bakar bat ere onar ez dezaten", gehitu zuen. ETC-prentsa

Orain urte eta erdi, proiektua aurkeztu genuenean, esan genuen Europako gizarte eragileak **ahalduntzera** gindoazela. ETC-prentsa

---

ahaldungai *(corpusean ez dago; ETCn **341** agerraldi)* *iz* diputatugaia.

Kanpainako bi asteotan, **ahaldungai** nagusiak gogotik saiatu dira sare sozialetan. ETC-prentsa

"Azpiegitura sare ona eta osatua edukitzea lortu dugu", dio Unai Rementeria EAJren **ahaldungai** nagusiak. ETC-prentsa

Orain dela lau urte, azkeneko unean, Bilduren Gipuzkoako **ahaldungai** nagusi izateko proposamena egin zioten, eta, nolabait, onartu egin behar izan zuen. ETC-prentsa

Erkidegoko kontseilu bilera hilaren 11n egingo dute, eta ikusi beharko da haiek jotzen dituzten **ahaldungai** nagusi. ETC-prentsa

Han ziren Eusko Jaurlaritzako dozena erdi bat sailburu, eta, Lopezekin batera, Bizkaiko bi hautagai sozialista nagusiak hizketan: Txema Oleaga Bilboko alkategaia eta Jose Antonio Pastor **ahaldungai** nagusia. ETC-prentsa

"Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio dutenekoa", idatzi zuen asteazkenean Jose Luis Bilbaok, Bizkaiko **ahaldungai** nagusi jeltzaleak. ETC-prentsa

Xabier Olano Gipuzkoako EH Bilduren **ahaldungai** nagusia prest azaldu da herri galdeketak "aurkari politikoaren aurkako arma gisa" ez erabiltzeko, eta uste du alderdiek bide hori batera egin behar dutela. ETC-prentsa

Hala mintzatu da buruzagi jeltzalea alderdi horretako Araba, Bizkai eta Gipuzkoako **ahaldungai** nagusiekin batera Nueva Economia Forumean eginiko gosari informatibo batean, Bilbon. ETC-prentsa

---

ahalduntze *(corpusean ez dago; ETCn **1.127** agerraldi, horietatik **1.052** azken sei urteetan)* **1** *iz* norberak bere buruari ahalmena aitortzea; zuzenbidean, norbaitek beste inori zerbait egiteko ahalmena ematea.

Ahalduntzea pertsonengan eta komunitateengan autonomia eta autodeterminazioa areagotzea xede duten neurriak dira, eurek euren interesak era aske eta arduratsu batean ordezkatzea ahalbidetzeko. ETC-entziklopedia

Txostenak **ahalduntze** digitalaren bidean lau eten-digital bereizi zituen: ETC-entziklopedia

Hori kontatzen du Nagusiak: jende xehearen **ahalduntzea**. ETC-literatura, saiakera

Baina gauzak errotik aldatu dira geroztik, eta gaurko Euskal Herrian ez du behar adinako **ahalduntzerik** erakusten euskaldun izateko jarrera eta praxi linguistiko etnikoak. ETC-literatura, saiakera

Zeintzuk dira **ahalduntze** terminoaren gaurko erabilerak? ETC-literatura, saiakera

Pentsatzea (eta, beraz, **ahalduntzea**) kolektiboa da: kolektibotik pertsonalera doa, eta pertsonaletik kolektibora. ETC-literatura, saiakera

Umeen **ahalduntzea** eta parte hartzea estuki loturik daude. ETC-literatura, saiakera

Mikrokredituen bidez "**ahalduntzea**" ez da balentria handia; ez, behintzat, mailegu-hartzaile gehienentzat. ETC-literatura, saiakera

Feminismoak emakumeen artean eragin duen **ahalduntze**-prozesuan eta mugimendu feministan, oro har, euskararen presentzia esanguratsua da. ETC-literatura, saiakera

Ahizpatasunaren ideiaz aparte, begirada feministak lagundu dit **ahalduntzearen** premia ez ahazten eta maitasunaren eredu erromantikoari aurre egiten. ETC-literatura, saiakera

Presondegitik irten zenetik, haren iritzi eta ikuspegiak aldatuz joan dira, geroz eta **ahalduntze**-maila handiagoa erakutsita, baita jarrera geroz eta kritikoagoa ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Boterea (**ahalduntzea**) hautetsitako instituzioetan kokatzea eta jarduera politikorako erdigune gisa berreskuratzea beste pauso bat da norabide berean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta alde horretatik kritika errepikatzaileak arrazoi zuela: bizitza aldaketa baino, bizitza berreskuratze baten istorioa da hemen kontatzen zaiguna, gaur hain modan dagoen **ahalduntzearen** bidetik. ETC-prentsa

Planak zehazten zituen jarduera ardatzen artean daude emakumea **ahalduntzea** eta mainstreaming delakoa -politikak egitean generoa ikuspuntutzat hartzea, eta genero berdintasuna filosofiatzat hartzea-. ETC-prentsa

Ez dakit erabiltzen dugun hiztegia ote den ezin ulertu horren arrazoietariko bat, mainstreaming, **ahalduntze**, androzentriko, bateragarritasun eta antzerakoak ulertzeak esfortzu pixka bat eskatzen duela ezin ukatu. ETC-prentsa

Jaurlaritzak hartutako konpromisoa oso positiboa delakoan nago, eta Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeak gizartean gehiago **ahalduntzea** ekarriko duelakoan. ETC-prentsa

Ikasleen **ahalduntzea** eta hezkuntza jardueren praktika erreala bultzatzeko beharra antzeman du azken hilabeteetan egindako eztabaidan, eta helburu horiek zehaztu ditu Ikasle Estrategian. ETC-prentsa

Zaku berean sartu dituzte biktima gaixo guztiak, ez da jabekuntzaz edo **ahalduntzeaz** hitz egin, baizik eta emakumeek behar dugun segurtasunaz. ETC-prentsa

Tratu txarrei eta **ahalduntzeari** buruzko esperientziak eta hausnarketak partekatuko dituzte egunotan Gasteizen, Jabekuntza kolektiboa emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko izenburupean Montehermoson egingo dituzten jardunaldietan. ETC-prentsa

"Inoizko **ahalduntze** ariketa handiena izango da milioika eskoziarrentzat", esan du Alex Salmond lehen ministroak kanpaina amaierako mezuan. ETC-prentsa

2 *emakumeen ahalduntze* *(corpusean ez dago; ETCn **207** agerraldi)*

2015eko azarotik badugu "**Emakumeen Ahalduntzerako** Eskolak Euskal Autonomia Erkidegoko Udalerrietan" izeneko sarrera wikipedian, non eskola hauen historia, ezaugarriak eta webguneak biltzen diren. ETC-literatura, saiakera

Erakunde eta elkarteetan parte hartzea sustatzeko, haien borondateaz gain, **emakumeen ahalduntzea** sustatzeko neurriak behar direla zioen Bizkaiko EHNEk, formazioa eta laguntza, hain zuzen. ETC-literatura, saiakera

Uztapiderengandik Arrizubietarenganainoko jauzia ezinezkoa zatekeen berrogeita hamar urte horietan zehar finkaturiko hiru harri-pausuren sostengurik barik: euskara batua, Bertso Eskolak eta **emakumeen ahalduntzea**. ETC-literatura, saiakera

Arteak kalean eta **Emakumeen ahalduntzea**, aldaketarako giltza izango dira. ETC-prentsa

Emakumeen ahalduntzea gobernuek "erosten" duten pakete horretan al dago? ETC-prentsa

Herriko emakumeen alfabetatzean laguntzen du, eta AMUTED elkarteko kidea ere bada; **emakumeen ahalduntze** prozesuetan lan egiten du. ETC-prentsa

Berdintasunaren alorrean aurrera egiteko, zenbait eragilek "beharrezkotzat" jotzen dute **emakumeen ahalduntzea** laguntzen duten politikak garatzea. ETC-prentsa

Kanpainetan ez dela **emakumeen ahalduntzea** sustatzen diozu. ETC-prentsa

Emakumeen ahalduntzea estrategikoa da borroka honetan. ETC-prentsa

Horrenbestez, medikuntza alternatiboek **emakumeen ahalduntzean** eragina izan dezaketen arren, tentu handiz ikertu behar dira horien baitan sortzen diren genero-eskema eta -ideologiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Emakumeen ahalduntzearen barnean, eremu publiko garrantzitsu bat okupatzen eta gurea egiten ari ginelakoz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta ahalduntzea nola definitzen dugun, halako analisia eta balorazioa egingo dugu **emakumeen ahalduntze** -prozesuaz ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrek **emakumeen ahalduntzearekin** batera, emakume erreferenteak sortzea ekarri du eta denek lorpen handi bat bezala bizi dutela esan daiteke. ETC-entziklopedia

Tuterako kaleetan rapeatzen hasi zen hainbat lagunekin. Ondoren poesia irakurri eta idazten hasi zen. **Emakumeen ahalduntzerako** Rap irakaslea da. ETC-entziklopedia

---

ahalean **1** *adlag* ahal den neurrian.

Ahalean labur kontatuko dut. Matías Múgica

Ur suil bat ekartzeko, **ahalean** ; eta xukadera bat. Txillardegi

Eta arropa-garbiketak ere, **ahalean** , bertago eta xinpleago, eta hobe. Txillardegi

2 *adlag* ahala.

Behin berriz, andreari eta bioi arnasa laburtzen hasi zitzaigun, aste-astero, larunbata hurbildu **ahalean** . Aingeru Epaltza

Sua sartzen den lekuan, sua indartu **ahalean** egurra ezkutatu egin ohi da. Joan Mari Lekuona

Bisitariak era sinple batez grapaturiko lau folio luzatu zizkidan atea zabaldu **ahalean** . Josetxo Azkona

Hurbiltzen ari zitzaidan, eta hurbildu **ahalean** ederragotzen. Aingeru Epaltza

Eta bizimina hazi **ahalean** , luzatuz doazkio ixil ixilik, negu minean osotara luzatu eta nabarmen ikusteraino. Patziku Perurena

3 *adlag* ahal adina.

Kolerak hartu zuen orduan, esan ezin **ahalean** , eta gutxienez bere tristezia asaskatu ahal izan zuen hartara. Patxi Zubizarreta

Ahoa ireki zuen Txitxikovek, guztiarekin ere Mikheiev hura aspaldi hil zela esateko, baina Sobakevitx hitz-jario zegoen, mihiak ekarri **ahalean** hitza eta pitza zeriola. Jose Morales

Iletik heldu eta atzera tiratu dit burua norbaitek, aurrean daukadanak masaileko batzuk ematen dizkidan bitartean, eman **ahalean** . Agurtzane Juanena

Hasi dira tiroka poliziak, tira **ahalean** eta balek kristaletan jo, txinpartak atera baina kristala zulatzen ez. Gotzon Garate

Euria bota **ahalean** ari zuen eta, zeruaren hobari haren hotsen artetik ozenegi aditu zedin nahi ez zuen boz batek egin zidan dei. Edorta Jimenez

Bryce Canyon liluragarrian gertatu da, zerua inpentsan ilundu, eta euria bota **ahalean** hasi duenean. Patxi Zubizarreta

Filiberto lurrari jo **ahalean** joka ari zen, bere ezpata nire kaskotik libratzeko ahaleginean. Aingeru Epaltza

4 ***bota ahalean***

Rakel orain euripean ikusten ari naiz, euria **bota ahalean** ez balitz bezala. Patxi Zubizarreta

Euria **bota ahalean** ari zuen eta, zeruaren hobari haren hotsen artetik ozenegi aditu zedin nahi ez zuen boz batek egin zidan dei. Edorta Jimenez

Eguraldi txarra egingo du, haizea gogor iparsortaldetik, elurra eta kazkabarra **bota ahalean** , hala ere elur kristal sastakatzaileen menpean geratuko zara istriborrean. Joseba Sarrionandia

Aitak lizar gaineko adaskak moztu eta behera **bota ahalean** nik zatukatan bildu. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)**
> **adigarria ahalean** (3); **adimendua ahalean** (2); **agortu ahalean** (2); **ahalean dena** (2); **ahalean hartzen** (3); **aitzina egin ahalean** (3); **bota ahalean** (7); **egin ahalean** (8); **eman ahalean** (3); **ene ahalean** (2); **estutu ahalean** (2); **eta ahalean** (2); **etorri ahalean** (2); **euria bota ahalean** (4); **gailendu ahalean** (2); **hori ahalean** (2); **hurbildu ahalean** (3); **jo ahalean** (2); **joan ahalean** (2); **sartu ahalean** (2); **tira ahalean** (2); **urteak joan ahalean** (2); **zabaldu ahalean** (2)

---

ahalegin *(ETCn **64.765** agerraldi; cf **eginahal** ETCn **3.504** agerraldi; orobat **alegin** g.er.)* **1** *iz* zerbait lortzeko, indar edo ahalmen guztiaz egiten den saioa. ik **eginahal**; **saiatze**; **enpeinu**; **afan**.

Lehertzear zegoen maleta berriro ireki eta hainbeste **ahaleginen** ondoren maletaratutako azken Cutty Shark botila maletatik atera eta trago bakar batez hustu zuen geratzen zena. Harkaitz Cano

Puntu hartara heldurik, bingo, Xankapok amaitutzat eman du bere **ahalegina** . Iñaki Iñurrieta

Norbaiten militantziarik edo, izan-nahirik, goi-minik, **ahaleginik** , beste interes materialik gabe. Joxe Azurmendi

Eta beltzen **ahalegina** ere, halakoa zen: aste hartan bakarrik, 28ø000 kartutxo bota zituzten liberalek gure aurka Lizarraldean. Txillardegi

Oihu eginarazi zidan ia-ia **ahaleginak** . Joxan Elosegi

Einsteinek oso ondo zekien zer-nolako **ahalegina** eskatuko zion tropa hura maneiatzeak. Fernando Morillo

Batere **ahaleginik** egin gabe. Hasier Etxeberria

Euskalki guztien artetik eredu jakin bat aukeratzea, eta eredu hori zehatz arautzea eskatu zuen aldakuntza giroak, eta 1968an plazaratutako euskara batua izan zen **ahaleginaren** ondorioa. Koldo Zuazo

Gure **ahaleginak** hutsean geratu dira. Felipe Juaristi

- Birtuosismoa, partituraren irakurketa pertsonala egiteko **ahaleginik** gabe, errepikapen mekaniko eta hotza baino ez da - esaten zion irakasleak -. Alberto Barandiaren

Ulertzen nuen amonaren **ahalegina** , baina berandu zen, beranduegi, nire familiako historia garrantzitsu hark nigan eragina izateko. Anjel Lertxundi

Ahalegina hunkigarria zen. Alberto Ladron Arana

Orduko saio eta **ahaleginak** aipatu behar dira, beraz, ordukoek baldintzatzen baitituzte egungo hauek, urte luzeetan baldintzatu dituzten modu berean. Andres Urrutia

Irakurlearentzat erakargarri handia izan daitekeela uste dut bere **ahaleginak** egilearenekin bateratzea, baldin eta aurkeztutako egitasmoaren araberako lan handi eta garrantzitsu bat konplituki eta iraunkorki osatzeko asmoa badu. Ibon Uribarri

Matematikako aieru ederrenetariko batzuetan; matematikari handienen **ahaleginen** aurrean mendez mende gogor eutsi dioten horietan. Jon Muñoz

-Damu dut nire **ahalegina** alferrikakoa izana. Koldo Izagirre

Euskal Herrian, hizkera propio bat egiteko unean, ez da behar beste indar batu, eta **ahaleginak** eskas geratu dira, ahul. Iñigo Aranbarri

-Badira hemen orduko argazki batzuk -diost emakumeak, nonbaitetik Elizako liburutzar antigoaleko harien taxuko albuma ateratzeko **ahaleginarekin** batera. Edorta Jimenez

Hara: zure **ahaleginak** batere arrakastarik gabe burutzen dituzu. Patxi Zubizarreta

Hauxe izan zen nire lehen **ahalegina** : Iban Zaldua

Ahaleginik gabe ez dago informatuta egoterik. Txema Ramirez de la Piscina

Hobe dela sormen puruan **ahaleginak** jartzea eta ez hainbeste zuzenketan. Ana Urkiza

Baina grazia egin dio mutilaren **ahaleginak** eta geratu egin dira. Pako Aristi

-Tira, neska-mutilak, azken **ahalegina** ! Aingeru Epaltza

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aztoramena gorantz joan zen eten gabe, harik eta 2002ko apirilaren 11n estatu kolpe **ahalegina** gertatu zen arte. Txema Ramirez de la Piscina

Esaterako, zentzu zabalagoa hartzen du articulatory effort ('ahoskera **ahalegina'**) edo base of articulation ('ahoskeraren oina') bezalako erabileretan. Lourdes Oñederra

Ikusgarri malenkoniatsu honi so gelditu nintzen bulta batez, giza **ahaleginaren** sinbolo antzekoa zitzaidana, Jainkoaren boterearen aitzinean. Koldo Izagirre

1772ko irailaren 2an, 32 urte zituela, errebeldian epaituko dute "pozoitze **ahaleginagatik"** eta "sodomia krimenagatik". Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

3 (-ko atzizkiaren eskuinean)

Kameraren klik hotsarekin batean eman du Polletek azken hatsa, biziarekin loturik jarraitzeko **ahalegina** sobera akigarria zaiola, argazkia eta gero. Xabier Montoia

Nirekin egoteko **ahalegina** eskertu diot. Anjel Lertxundi

Bazuen halako apaiz jite bat, bai eta itsasgizonarena ere; gero kontatu zidan Tientsin-en misiolari ibilia zela, "sinologo izatera iristeko **ahalegina** saiatu aurretik". Juan Garzia

Frantziskok berak hartu zuen Anaiartean, 1214-1215 urteetan, Marokora joateko **ahaleginak** huts egin ondoren Italiara itzuli zenean. Askoren artean

Liburu honetakoak ez dira gai errazak eta horrek ezinbestean murrizten du adierazpidea errazteko **ahalegina**. Lourdes Oñederra

Arnasa nola hartzen zuen aditu ahal izan zuen Mikelek, eskailerak igotzeko **ahaleginak** areagotuta. Aitor Arana

Zurekin fidantza osoa ez badu, bere umeak babesteko **ahaleginak** egingo ditu. Gotzon Garate

Erantzunak bilatzeko **ahaleginak** kontzeptua zehazteko balioko digu, baita murrizteko ere. Iñaki Arranz

Honek irribarrez begietsi zituen ibilgailuaren inarrosaldiei amorerik ez emateko nire **ahaleginak**. Aingeru Epaltza

Ryokok egindako tatuajea ezabatzeko **ahaleginak** egin nituen, ordea. Javi Cillero

Eta egiazko -ala gezurrezko- bere kontakizun haiekin atsegin hartuz-edo, pozoitze lanaren deskripzioa bidali zion, xehe-mehe, etxeko arratoiak akabatzeko **ahaleginak** balira bezain gordin idatzirik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Poliziari deitu nahi zion semea atxilotu zezaten aita hiltzeko **ahaleginaz** akusatua. Pello Lizarralde

Hala, haurrak zirkulu horietako bakoitza ulertu eta menderatzeko **ahalegina** azalduko luke liburuak. Itziar Otegi

Jainkoa badela frogatzeko **ahaleginen** berri eman nion lehenik eta behin: Santo Tomasenak, San Anselmorenak, Descartesenak. Joxerra Garzia

Gizarte-desintegrazioaren sintomak dira, baina aldi berean desintegrazio hori gerarazi eta berorri aurre egiteko **ahaleginak**. Iñaki Mendiguren

Segundo batez, telefonoz bestaldeko ahotsa aurpegi batekin lotzeko, izena erreferentzia batekin identifikatzeko **ahalegina** egin nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Izua mendean hartzen saiatu beharra genuen, Mihurubikoa gaitza mendean hartzeko eta inoren hatsari betiko joaten ez uzteko **ahalegina** egiten ari zen legez. Edorta Jimenez

4 *ahalegin bat egin* *(**150** agerraldi, **33** liburu eta **17** artikulutan)* du *ad*

Mugaz bestaldeko barbaroak, behin betiko ez bada ere, menderatu ahal izateko, limes mehatxatuaren atzeko botereak **ahalegin bat egin** behar du.-Altxatzen laguntzen banauzu, **ahalegin bat eginen** dut. Iñaki Mendiguren

Ahalegin bat egin nuen Aurora ahal bezain sarri ikusteko, batez ere hasierako hilabete zail haietan, berriro bere bidea aurkitzeko borrokan ari zela. Oskar Arana

Hor **ahalegin bat egiten** dute kazetariek, egin behar den bezala gainera, herriko hizkera erabiltzeko, herriko euskara batua erabiltzeko. Pello Salaburu

Esaterako, bertso jarrien terrenoak norberak nahi dituen gaiak lantzeko aukera ematen du, eta nik behintzat badut arlo horretan **ahalegin bat egiteko** asmoa, probatzeko behintzat. Berria - Harian

Bilbo inoiz ikusi duten guztiek dakiten bezala, hiriko auzo batzuk, azken etorkinentzat eraikitakoak, mendi malkarretan daude kokatuta, eta haietara oinez iristeko **ahalegin bat egin** behar da nahitaez. Bernardo Atxaga

Euskara suspertzeko eta indartzeko **ahalegina egin** zen. Koldo Zuazo

Aldez aurretik esaten dizuet guztiok aprobatuko zaituztedala, baldin eta gutxieneko **ahalegin bat egiten** baduzue. Joan Mari Irigoien

Llum aulkitik altxatu eta joateko prest dagoenean, Danik beste **ahalegin bat egiten** du. Antton Olano

Mikel Strogoffek azken **ahalegin bat egin** behar bazuen helmugara iristeko, ondoan izango zuen gidari. Karlos Zabala

Forster nobelagile ingelesak kontatzen du bere saiakera batean, fikzio **ahalegin bat eginez**: [...]. Pako Aristi

Hori atzemateko berariazko gogoeta-**ahalegin bat egin** behar da, eta fikziozko film batean ez da berehalatik ikusten; halako "dokumental"-efektu bat film zaharretan baizik ez da egiaz sumatzen. Josu Zabaleta

Inoiz edo behin **ahalegina egin** badut ere eman zizkidan argibideak gogoratu nahian, botoidurari buruzko galdera oroitzen dut, ez erantzuna. Anjel Lertxundi

5 *ahalegina egin* *(**656** agerraldi, **86** liburu eta **147** artikulutan)* du *ad*

Egia esan, ez nekien kale horretako hamalaugarren zenbakian, zazpigarreneko C atean bizitzen jarraitzen ote zuen ere, baina **ahalegina egin** behar nuen, besterik ezean. Iban Zaldua

Andreak azken **ahalegina egin** eta gizon bati hotsegiten dio. Bernardo Atxaga

-Lortu dun, hondarrean -mintzoa kutsu lakatzez janzteko azken **ahalegina egin** nuen. Aingeru Epaltza

Komedia hau eszenara ongi bihurtu nahi izanez gero, **ahalegina egin** behar da Sei Pertsonaia hauek eta Konpainiako gainerako antzezleak elkarrengandik ongi bereiz daitezen. Josu Zabaleta

-Errespetuz, jauna; handik ateratzeko **ahalegina egin** beharko genukeela uste dut. Edorta Jimenez

-Ezer berezirik ez, esan dizut, nik dakidala behintzat, ziur nago -azken **ahalegina egin** zuen etsia hartu aurretik. Migel Angel Mintegi

Sekulako **ahalegina egin** behar dut haserreari eusteko. Anjel Lertxundi

"Banoa, Anas" esanda, altxatzeko alferreko **ahalegina egin** zuen Lucasek. "Ez zaitez itzuli" entzun zuen Anasen ohetik. Unai Elorriaga

Dena dela, ezin da ukatu Autonomia Estatutua idatzi zenean gauza asko bideratzeko **ahalegina egin** zela. Pello Salaburu

Edwin Walshen boza urrundu eginen zaizu ia entzunezina egin arte eta, zutik geratzeko **ahalegina egin** arren, behelaino grisak ezabatuko zaitu. Joseba Sarrionandia

Nanak ondo ezagutzen zuen arnasa hartzeko modu hura, eta Lizaren atzaparretatik askatzeko **ahalegina egin** zuen. Julen Gabiria

Partida guztiak jokatu behar dira sasoi betean eta Hormadik **ahaleginak egin** behar ditu sailkapenik onena erdiesteko play-off-ei begira. Berria - Kirola

Argi eta garbi esan behar dut **ahalegina egin** banuen, azken-azkenean Mitxoletarekin bildu ahal izateko egin nuela, beste helbururik ez nuela. Jon Alonso

Biharamun gauean, itzuleran **ahalegina egin** nuen eskumara ez begiratzeko. Urtzi Urrutikoetxea

Halako **ahalegina egin** zuen, ordea, non garun-kongestio batek jo baitzuen Euler. Jon Muñoz

Agerrek **ahalegina egin** behar izan zuen bere begiek ustekabea sala ez zezaten. Aingeru Epaltza

Sekulako **ahalegina egin** behar izan zuen mahaikideek egonezina nabarmen ez ziezaioten. Anjel Lertxundi

Idazten ari den eleberrian ere, aparteko **ahalegina egin** behar du ahanzturari zirrikiturik ez uzteko. Imanol Zurutuza

Hainbesteko **ahalegina egin**, eta zertarako. Edorta Jimenez

Posterrak gure etxeko hormetatik kentzea, zainak moztuz suizidio **ahalegina egin** ondoren oraindik sendatzen ari denari eskumuturretatik esparatrapuak erauztea bezala izan zen. Harkaitz Cano

6 *ahaleginak ahalegin*

Ahaleginak ahalegin, ospitalean ezin izan dituzte mutilak beren onera ekarri. Patxi Iturritegi

Txitxikov, bere aldetik, barre egiten eta txantxetan aritzen ahalegintzen zen, baina, **ahaleginak ahalegin**, lagunen ziriek ez zuten batere alaitu. Jose Morales

Eta ordu bat eta erdian, **ahaleginak ahalegin**, almadiak hesi trinko bat jo eta gelditu egin zen behin betiko. Karlos Zabala

Aurkikuntza hori ez zuen, **ahaleginak ahalegin**, ez Tartagliak, ez Girolamo Cardanok egin, Ludovico Ferrarik baizik. Jon Muñoz

Ahaleginak ahalegin, lotsek eta beldurrek bere horretan iraun dute gaur arte. Koldo Zuazo

Ahaleginak ahalegin, zarata gehiegi ateratzen ari gara. Mirentxu Larrañaga

7 *ahaleginak egin* *(**824** agerraldi, **125** liburu eta **126** artikulutan)* du *ad*

Ez dakit lortuko dudan, baina **ahaleginak egingo** ditut. Jose Morales

Eta, **ahaleginak egin** arren galtzen badut, gutxienez ez diot ezer aurpegiratu beharko neure buruari, eta, Brutok bezala, harro oihukatu ahal izango dut: Oi bertute! Itziar Otegi

Danelek, ez niola sinesten oharturik, **ahaleginak egin** zituen ni engainatze aldera: eguraldi txarra; sekulako haizeteak; hegazkinak ez zuela Bordeletik irteterik izan. Anjel Lertxundi

- **Ahaleginak egin** hemendik alde egin dezan... -hasi zen izeba Emily esaten eta isildu egin zen ahoa erdi irekita zeukala. Lopez de Arana

Ahaleginak egin behar zirela edertasuna aberekeriaren maskara bihur ez zedin. Bernardo Atxaga

Ahaleginak egin dituzu zure sentimenduak begietan nabarmendu gabe gordetzen. Rafa Egiguren

Ahaleginak egin behar izan dituzu zeure onetik ez ateratzeko. Rafa Egiguren

Arrazoi pisutsu bat behar zen, hura bezalako gizon batek halako **ahaleginak egin** zitzan loro bat berreskuratzeko. Jon Muñoz

Azkarragaren aburuz, "bigarren trantsizioari" ekin ahal izateko, alderdi guztiek **ahaleginak egin** beharko dituzte. Berria - Euskal Herria

Landek berak **ahaleginak egin** zituen prozesu horietarako garuneko leku jakin bat ez zehazteko, eta kontu handia izan zuen kolorearen ikusmenaz berak eraikitako teoriari Retinex teoria deitzen. Xabier Olarra

Orain mendia Moisesengana etorri da, ez Moisesek ez zuelako mendira joan nahi, denok baitakigu zer nolako **ahaleginak egin** zituen, baizik eta, dakigunez, Moisesen gainetik sarjentu-laguntzailea baitago, eta alferiza, eta kapitaina. Jon Alonso

Bazen garaia eurei koherentzia emateko, edo gutxienez horretarako **ahaleginak egiteko**. Xabier Arregi

Ahaleginak egin dituzu lasaitasuna gordetzeko, baina nahigabea sentitzen duzu ama horrela sufritzen ikusita. Rafa Egiguren

Ahaleginak egin dituzu irudi horiek uxatzeko. Rafa Egiguren

Berriz ere **ahaleginak egin** behar izan zituen harridura ezkutatzeko. Migel Angel Mintegi

Beste mandatu batzuen artean, nekazari ehunka batzuk Babes Batzordean bahitzeko **ahaleginak egin** zitzala eskatu zioten. Jose Morales

Hala ere, hori gainditzeko **ahaleginak egin** beharko dira, baldin eta Irlanda iparraldean bakea eta justizia ezarri nahi bada. Berria - Harian

Ez zuen Ostiral Santuko bake prozesua sinatu eta hura aldatzeko **ahaleginak egin** ditu 2003ko hauteskundeak irabazi zituenetik. Berria - Harian

Europara itzultzean zenbait misiolarik nolabaiteko **ahaleginak egin** zituzten beren herrialdeetan zabaltzeko, baina dirudienez ez zuten asmatu ongi azaltzen. Xabier Olarra

Koadroak lurrean jarri ditu artistak, eta bisitariak **ahaleginak egin** behar ditu labirintoaren barruan baten bat ez zapaltzeko. Berria - Kultura

Pentsatzen zuen bi saihets-hezur jada hautsita izango zituela jada barreari eusteko **ahaleginak egin** beharraren egin beharrez. Iñaki Mendiguren

Palestinako Legebiltzarrerako 132 kideak aukeratzeko hauteskundeen kanpaina atzo amaitu zelarik, bozetara lehiatzen diren indar politikoek azken **ahaleginak egin** zituzten bozkatzeko adinean dauden 1,4 milioi palestinarrak konbentzitzearren. Berria - Mundua

Hain barregarri zegoen bere aurpegi txiki haserreari seriotasun-airea emateko alferrikako **ahaleginak egiten** eta hatza luzaturik, ezen zaintzako soldadu batek, araudia hautsiz, ahopeka esan baitzion aretotik irtetean: [..]. Jose Morales

Gauzak lasaitu ziren, latinistak joan ziren, eta mahaian eseri nintzen berriro idazten hasteko, baina, bila eta bila **ahaleginak egin** arren, idazluma estilografikoa ez zen inondik ageri. Josu Zabaleta

Egunero jatordu bat egiteko zazpi **ahaleginak egin** behar dituzte. Gotzon Garate

Herrixkarantza zihoazela ere, sakelako telefonoz azken **ahaleginak egin** zituen, baina ez zuen ordezkorik lortzerik izan. Patxi Zubizarreta

Beharrezkoak diren **ahaleginak egin** behar dira. Berria - Ekonomia

8 *ahaleginak eta bi egin*

Egoera horrek hainbeste harrotu zituen, **ahaleginak eta bi egin** zituzten oraindik ere denbora gehiago egoteko ohera joan barik, esate baterako bendak eskatuz. Julen Gabiria

Ahaleginak eta bi egiten nituen arren, ez nuen batere emaitzarik eskuratzen. Xabier Aranburu

Erne egon ez zirenek, eta haize-babesen erruz onenen taldearen arrastoa galdu zutenek **ahaleginak eta bi egin** zituzten aurrekoekin bat egiteko. Berria - Kirola

Ahaleginak eta bi egingo dituzte mutikoa suspertzeko, alferrik ordea. Berria - Kultura

Ahaleginak eta bi egin nituen modu sinesgarrian beraren bozkarioan partaide agertzeko, baina Giuliari ezin zaio sinetsarazi pentsatzen ez den gauzarik, ez eta pentsatzen denik ezkutatu ere. Juan Garzia

Ahaleginak eta bi egin ondoren gauza luze, bigun eta beltz bat branka gainean paratzea lortu zuten. Lopez de Arana

Batzuetan gertatzen da jendeak **ahaleginak eta bi egitea** norbaitekin telefonoz harremanetan jartzeko, baina kale egitea, dena delako telefono-zenbakian erantzunik jaso ez dutelako. Mirentxu Larrañaga

Saiatuko gara azaroa baino lehen joaten, eta ezin badugu, **ahaleginak eta bi egingo** ditut ezkontza baino pare bat egun lehenago iristeko. Arantxa Iturbe

9 *ahaleginak eta bost egin*

Sei urtez geroztik, ari eta ari, **ahaleginak eta bost egin** izan ditut igotzearren; baina alferrik: behin sikiera ere ez dut lortu. Jesus Mari Mendizabal

Artean iturgintzan trebatu gabea izanagatik ere, **ahaleginak eta bost egin** zituen zorioneko gailua eta ur-hodiak ahalik txukunen jartzen. Joxerra Garzia

Cabo Quilateseko eta Altuna-Mendiko jazoeren ostean Jaurlaritzak **ahaleginak eta bost egin** zituen, halakorik berriro jazo ez zedin. Edorta Jimenez

Eta jarrera hori ekimenetarako bidean jartzen saiatzen direnek, **ahaleginak eta bost egiten** dituzte jarrera okerreko guztiak lehenbizi fakzio eta konspirazio batean biltzen; eta gero, egoera horretan ahalik eraginik handiena izaten. Esteban Antxustegi

10 *ahaleginaren ahaleginez*

"Begira Santxo; onbidea harturik, hire egite onak ederresten badituk, printze eta jaun handien inbidiarik ez duk izango; jatorriz hartzen baituk odola eta **ahaleginaren ahaleginez** bertutea; horregatik, odolak balio ez duena balio dik bertuteak hutsak." Patxi Ezkiaga

Ahaleginaren ahaleginez, zer edo zer gauzatzen hasia zarela antzeman duzu, baina kosta egiten zaizu hitzetan biltzea. Rafa Egiguren

Bideak eta bidezidorrak, lohiez beteak zeuden denak, eta oinak irristatu egiten ziren; batzuetan behor bat sabeleraino sartzen zen putzu batean eta **ahaleginaren ahaleginez** lortzen zuten estutasun hartatik ateratzea. Koro Navarro

Eskuak eta besoak dardarka zituzten **ahaleginaren ahaleginez**. Irene Aldasoro

11 *alferrikako ahalegin*

Alferrikako ahalegin horiek guztiek zertxobait murriztu dute monumentu honen eszenaratzearen edertasun ukaezina. Berria - Kultura

Alferrikako ahalegina izan ohi zen, ordea, arrazoi ematen zidanean ere. Ramon Saizarbitoria

Ez zen **alferrikako ahalegina** izan. Bernardo Atxaga

Hain barregarri zegoen bere aurpegi txiki haserreari seriotasun-airea emateko **alferrikako ahaleginak** egiten eta hatza luzaturik, ezen zaintzako soldadu batek, araudia hautsiz, ahopeka esan baitzion aretotik irtetean: Jose Morales

Edertasuna "**alferrikako ahaleginari**" lotzen zaio, edertasuna eta tristezia lotuta daude halabeharrez, bere lan nagusi batek izenburuan bertan jasotzen duen moduan. Ibon Uribarri

-Nor da? -galdetu nuen, zerbait ikusteko **alferrikako ahaleginetan**. Aitor Arana

Hizteriak jota **alferrikako ahaleginetan** sortutako ateraldi xelebreak, nonbait, balioaren aldetik hutsaren hurrengoak. Iñaki Arranz

12 *zazpi ahaleginak egin*

Joanttok Lizuniagako bentarainoko bide guzia kasik isilik egin zuen, bazterrei eta elkarrizketa baten sortzeko **zazpi ahaleginak egin** zituen Mariri ere kasu eman gabe. Elena Touyarou

Lurretik **zazpi ahaleginak egin** ondoren, arbola gainera abiatzen ginen hurrena. Patziku Perurena

Egunero jatordu bat egiteko **zazpi ahaleginak egin** behar dituzte. Gotzon Garate

Kristauak hildakoa bistatu zuenean, braustakoan kendu zitzaion mozkorra eta **zazpi ahaleginak egin** zituen gertatutakoa oroitzeko; inondik ere ezin zuen ulertu berak gizon hura hil izana. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahalegin bat (102); **ahalegin bat egin** (24); **ahalegin bat egingo** (6); **ahalegin bat egitea** (6); **ahalegin bat egiteko** (5); **ahalegin bat egiten** (8); **ahalegin batean** (12); **ahalegin batzuk** (14); **ahalegin batzuk egin** (5); **ahalegin berezia** (101); **ahalegin berezia egin** (65); **ahalegin berezia egingo** (8); **ahalegin berezia egiteko** (6); **ahalegin**

berezia egiten (6); **ahalegin bereziak** (6); **ahalegin berezirik** (14); **ahalegin berezirik egin** (8); **ahalegin betean** (12); **ahalegin biziak** (7); **ahalegin bizian** (9); **ahalegin egin** (14); **ahalegin ekonomiko** (5); **ahalegin ekonomikoa** (11); **ahalegin eta** (29); **ahalegin etsia** (5); **ahalegin gehiago** (5); **ahalegin guztia** (29); **ahalegin guztiak** (184); **ahalegin guztiak alferrik** (5); **ahalegin guztiak egin** (58); **ahalegin guztiak eginda** (7); **ahalegin guztiak egingo** (23); **ahalegin guztiak egiten** (17); **ahalegin guztiak gorabehera** (5); **ahalegin guztian** (9); **ahalegin guztiaz** (8); **ahalegin guztiek** (9); **ahalegin guztiz** (6); **ahalegin haiek** (6); **ahalegin handi** (14); **ahalegin handi bat** (7); **ahalegin handia** (106); **ahalegin handia egin** (58); **ahalegin handia egiten** (16); **ahalegin handiagoa** (35); **ahalegin handiagoa egin** (14); **ahalegin handiagoa egiten** (6); **ahalegin handiagoak** (7); **ahalegin handiak** (37); **ahalegin handiak egin** (24); **ahalegin handiak egiten** (6); **ahalegin handiena** (15); **ahalegin handirik** (18); **ahalegin handirik egin** (8); **ahalegin handirik gabe** (6); **ahalegin handiz** (13); **ahalegin hartan** (9); **ahalegin hau** (8); **ahalegin honetan** (5); **ahalegin hori** (46); **ahalegin horiek** (13); **ahalegin horien** (6); **ahalegin horrek** (7); **ahalegin horren** (12); **ahalegin horretan** (44); **ahalegin horri** (8); **ahalegin hura** (7); **ahalegin itzela** (12); **ahalegin itzela egin** (7); **ahalegin izugarri** (5); **ahalegin izugarria** (8); **ahalegin oro** (17); **ahalegin oso** (5); **ahalegin osoz** (7); **ahalegin serioa** (7); **ahalegin txikia** (9); **ahalegin txikiagoa** (6); **ahalegin txikienik** (5); **ahalegin ugari** (6); **ahalegin zaitezte** (5); **ahaleginak ahalegin** (9); **ari den ahalegin** (5); **ateratzeko ahalegin** (5); **aurkitzeko ahalegin** (5); **azken ahalegin** (27); **azken ahalegin bat** (17); **baina ahalegin** (21); **baina ahalegin guztiak** (6); **baino ahalegin** (10); **baino ahalegin handiagoa** (6); **bere ahalegin** (29); **beren ahalegin** (7); **berreskuratzeko ahalegin** (5); **beste ahalegin** (27); **beste ahalegin bat** (17); **betetzeko ahalegin** (5); **bi ahalegin** (9); **da ahalegin** (7); **den ahalegin** (17); **dira ahalegin** (8); **du ahalegin** (9); **duen ahalegin** (6); **dugu ahalegin** (6); **duten ahalegin** (6); **egin zuen ahalegin** (5); **egindako ahalegin** (21); **egindako ahalegin guztiak** (7); **egiteko ahalegin** (16); **egiten den ahalegin** (9); **emateko ahalegin** (6); **ere ahalegin** (15); **eta ahalegin** (121); **eta ahalegin berezia** (5); **eta ahalegin guztiak** (13); **eta ahalegin handia** (7); **eta ahalegin handiak** (6); **eta ahalegin handiena** (5); **eta ahalegin handiz** (6); **eta ahalegin horretan** (8); **eta nire ahalegin** (5); **eusteko ahalegin** (6); **gero eta ahalegin** (5); **gure ahalegin** (5); **hainbat ahalegin** (8); **hainbeste ahalegin** (5); **hamaika ahalegin** (6); **ihesaldi ahalegin** (5); **iristeko ahalegin** (5); **izateko ahalegin** (16); **lehen ahalegin** (5); **lortzeko ahalegin** (12); **lortzeko ahalegin guztiak** (5); **marka ahalegin** (6); **nire ahalegin** (18); **nire ahalegin guztiak** (7); **nituen ahalegin** (5); **nuen ahalegin** (5); **saihesteko ahalegin** (5); **sartzeko ahalegin** (5); **zen ahalegin** (5); **zuen ahalegin** (17); **zuten ahalegin** (5)

ahalegina alferrikakoa (5); **ahalegina baino** (5); **ahalegina bertan** (6); **ahalegina bertan behera** (6); **ahalegina da** (22); **ahalegina dela** (7); **ahalegina edo** (5); **ahalegina egin** (215); **ahalegina egin arren** (5); **ahalegina egin behar** (47); **ahalegina egin beharko** (19); **ahalegina egin du** (11); **ahalegina egin dute** (12); **ahalegina egin eta** (5); **ahalegina egin nahi** (7); **ahalegina egin nuen** (10); **ahalegina egin ondoren** (5); **ahalegina egin zuen** (36); **ahalegina egin zuten** (13); **ahalegina eginen** (5); **ahalegina eginez** (16); **ahalegina egingo** (88); **ahalegina egingo du** (33); **ahalegina egingo duela** (9); **ahalegina egingo dugu** (9); **ahalegina egingo dute** (8); **ahalegina egingo dutela** (16); **ahalegina egitea** (18); **ahalegina egiteko** (29); **ahalegina egiteko eskatu** (12); **ahalegina egiten** (77); **ahalegina egiten ari** (24); **ahalegina egiten du** (8); **ahalegina egiten zuen** (6); **ahalegina ere** (10); **ahalegina eskatu** (14); **ahalegina eskatzen** (5); **ahalegina eskertu** (8); **ahalegina eta** (14); **ahalegina ez** (5); **ahalegina goraipatu** (5); **ahalegina izan** (19); **ahalegina izan da** (6); **ahalegina izan zen** (6); **ahalegina izango** (7); **ahalegina nabarmendu** (6); **ahoskera ahalegina** (5); **aparteko ahalegina** (5); **aparteko ahalegina egin** (5); **ari den ahalegina** (6); **azken ahalegina** (35); **azken ahalegina egin** (10); **baina ahalegina** (8); **baina ahalegina egin** (6); **bere ahalegina** (13); **berebiziko ahalegina** (8); **berreskuratzeko ahalegina** (8); **bigarren ahalegina** (8); **den ahalegina** (14); **drop ahalegina** (6); **du ahalegina** (7); **duen ahalegina** (25); **duten ahalegina** (11); **egin zuen ahalegina** (7); **egin zuten ahalegina** (7); **egindako ahalegina** (36); **eginiko ahalegina** (7); **egiteko ahalegina** (29); **egiten duen ahalegina** (17); **egiten duten ahalegina** (7); **egoteko ahalegina** (6); **emateko ahalegina** (5); **eta ahalegina** (17); **eta ahalegina egin** (6); **euren ahalegina** (8); **eusteko ahalegina** (5); **gainditzeko ahalegina** (11); **gatazka gainditzeko ahalegina** (5); **hartzeko ahalegina** (5); **hobetzeko ahalegina** (6); **ihes egiteko ahalegina** (6); **izateko ahalegina** (8); **jartzeko ahalegina** (8); **jasotzeko ahalegina** (5); **lehen ahalegina** (12); **lortzeko ahalegina** (17); **marka ahalegina** (39); **marka ahalegina egin** (5); **marka ahalegina egingo** (16); **nire ahalegina** (5); **sartzeko ahalegina** (15); **sartzeko ahalegina egin** (8); **sekulako ahalegina** (7); **sekulako ahalegina egin** (7); **sortzeko ahalegina** (10); **uzteko ahalegina** (5); **zabaltzeko ahalegina** (5); **zen ahalegina** (6); **zuen ahalegina** (10); **zuten ahalegina** (8)

ahaleginak ahalegin (9); **ahaleginak antzuak** (5); **ahaleginak egin** (195); **ahaleginak egin arren** (14); **ahaleginak egin behar** (40); **ahaleginak egin beharko** (6); **ahaleginak egin ditu** (8); **ahaleginak egin ditut** (5); **ahaleginak egin dituzu** (10); **ahaleginak egin nituen** (8); **ahaleginak egin zituen** (30); **ahaleginak egin zituzten** (14); **ahaleginak eginda** (9); **ahaleginak eginda ere** (6); **ahaleginak eginen** (9); **ahaleginak eginez** (26); **ahaleginak egingo** (50); **ahaleginak egingo ditu** (8); **ahaleginak egingo dituela** (10); **ahaleginak egingo ditut** (7); **ahaleginak egingo dituztela** (6); **ahaleginak egitea** (12); **ahaleginak egiteko** (20); **ahaleginak egiten** (125); **ahaleginak egiten ari** (31); **ahaleginak egiten dira** (5); **ahaleginak egiten ditugu** (5); **ahaleginak egiten zituen** (24); **ahaleginak ere** (10); **ahaleginak eta** (35); **ahaleginak eta bi** (19); **ahaleginak eta bost** (5); **ahaleginak ez** (23); **ahaleginak ez du** (5); **ahaleginak ez zuen** (6); **ahaleginak huts** (6); **ahaleginak huts egin** (6); **ahaleginak hutsean** (5); **ahaleginak merezi** (9); **ahaleginak merezi izan** (5); **ahaleginak oro** (25); **ahaleginak oro egin** (6); **ahaleginak oro egingo** (10); **ahaleginaren berri** (5); **ahaleginaren ondoren** (5); **ahaleginaren ondorioz** (5); **aldeko ahaleginak** (7); **azken ahaleginak** (8); **baina ahaleginak** (9); **bere ahaleginak** (7); **betetzeko ahaleginak** (5); **diren ahaleginak** (12); **dituen ahaleginak** (6); **dituzten ahaleginak** (10); **egin dituen ahaleginak** (5); **egin dituzten ahaleginak** (5); **egindako ahaleginak** (27); **egindako ahaleginaren** (10); **egiteko ahaleginak** (12); **egiten diren ahaleginak** (6); **egiten dituzten ahaleginak** (5); **emateko ahaleginak** (6); **erakusteko ahaleginak** (5); **ere ahaleginak** (10); **eta ahaleginak** (38); **eta ahaleginak egin** (13); **eta ahaleginak egiten** (6); **gainditzeko ahaleginak** (5); **gobernuak ahaleginak** (5); **hartzeko ahaleginak** (6); **hobetzeko ahaleginak** (6); **ihesaldi ahaleginak** (6); **izateko ahaleginak** (5); **jarraitzeko ahaleginak** (5); **konpontzeko ahaleginak** (5); **lortzeko ahaleginak** (18); **lortzeko ahaleginak egingo** (5); **marka ahaleginak** (7); **nire ahaleginak** (8); **sekulako ahaleginak** (5); **ulertzeko ahaleginak** (6); **zazpi ahaleginak** (9); **zazpi ahaleginak egin** (7); **zituen ahaleginak** (5); **zuen ahaleginak** (7)

ahaleginean ari (24); **ahaleginean ari zen** (6); **ahaleginean hasi** (5); **ahaleginen emaitza** (5); **ahaleginetan ari** (72); **ahaleginetan ari da** (11); **ahaleginetan ari dira** (9); **ahaleginetan ari zen** (20); **ahaleginetan ari ziren** (5); **ahaleginetan aritu** (6); **ahaleginetan hasi** (5); **ahaleginetan ibili** (5); **ahaleginetan jardun** (7); **askatzeko ahaleginetan** (5); **ateratzeko ahaleginean** (5); **ateratzeko ahaleginetan** (7); **bere ahaleginean** (6); **bigarren ahaleginean** (5); **egiteko ahaleginean** (10); **egiteko ahaleginetan** (10); **emateko ahaleginetan** (7); **eta ahaleginean** (9); **eusteko ahaleginean** (15); **eusteko ahaleginetan** (13); **izateko ahaleginean** (8); **lortzeko ahaleginean** (13); **lortzeko ahaleginetan** (12); **mailari eusteko ahaleginean** (6); **sartzeko ahaleginetan** (10); **zabaltzeko ahaleginetan** (6)

---

ahaleginarazi, ahaleginaraz(i), ahaleginarazten du *ad* ahalegintzera behartu.

Horri erantzuteko Unamuno-k Biblia **ahaleginarazten** du: [...]. Joxe Azurmendi

---

ahalegindu, ahalegin(du), ahalegintzen *(orobat **alegindu** g.er.)* da *ad* ahalegina egin.

Dudley gutuna hartzen **ahalegindu** zen irakurtzeko, baina osaba Vernonek goian zeukan, Dudleyren irismenetik kanpo. Iñaki Mendiguren

Gaia saihesten **ahalegindu** da, etengabe, baina alferrik. Iban Zaldua

Sara nobela saltzen **ahalegindu** zen, pare bat igandez, plaza berrian antolatzen den azokan, baina ez zuen zorterik izan. Iban Zaldua

Hitz-lau arruntetik neurtitz berezirainoko gradu guztiak aurki baitaitezke obran, ñabartasun hori ere nolabait gordetzen **ahalegindu** gara. Juan Garzia

Lanpetuaren itxura eskaintzen **ahalegindu** nintzen une oro, berriro kopuruetara igor nintzaten beldur handi bainintzen. Joxan Elosegi

Laburbilduz, hitz haiek guztiak hizkuntza arrotz batean esaten **ahalegintzen** ari nintzen, egizue kontu nolako izerdiak bota nituen hartan. Fernando Rey

Nik oso ongi ulertzen nuen dialekto hura, baina han, formika arrakalatu haren gainean, nire aitaren erokerien zergatia kontatu zidan hartan, gehiegitxo ere **ahalegindu** zen. Josu Zabaleta

Orduan, eutsi ezineko gogo bizi bat jabetu zen nitaz: beste behin **ahalegindu** nahi izan nuen zuri gogorarazten: Eduardo Matauko

Zera erants daiteke: artistak, krisia eta arazoa zehazten **ahalegintzeaz** gainera, gizakiok krisidun eta arazodun garela oroitarazten digu. Anjel Lertxundi

Bart to-eta-no adituak nituen, eta orduan ere nor ote zen asmatzera **ahalegindu** nintzen, lortu gabe. Aingeru Epaltza

- Ondo zagok, baina nik ere **ahalegindu** beharko diat ematen! Urtzi Urrutikoetxea

Josu R, jendearekin ez entretenitzeko, Traukorekiko hizketaldia mintzagai berriez hornitzen **ahalegintzen** zen, haien arteko jardunari berebiziko garrantzia emanez. Pedro Alberdi

Herrialdeko banku zentrala **ahalegintzen** da, jakina, bertako diruaren truke-tasari dituen erreserben bidez eusten (horretarako, bertako diruaren truke-tasari eusteko, bertako dirua erosten du eta dolarrak saldu). Iñaki Heras

Hona hemen Davidek, bere erregealdian, israeldar guztiekin batera, izan zituen buruzagi adoretsuak; hauek **ahalegindu** ziren David errege izan zedin, Jaunak Israeli esan bezala. Elizen arteko biblia

Poema bat egiten ere **ahalegindu** nintzen, baina alferrik. Bernardo Atxaga

Gure hurbiltze traketsak oztopatzen **ahalegintzen** zen, eta trufa egiten zien elkarrenganako kutuntasun jaio berriaren agerpen uzkurrei. Ander Irizar

Leihotik aldendu, eta pentsamendu haiek uxatzen **ahalegindu** nintzen. Aritz Gorrotxategi

Imajinazioak irudimenezko arriskuak ikusarazten zizkion Andresi, eta kemenaren indarrez arrisku haiei aurre egin eta gainditzen **ahalegintzen** zen. Josu Zabaleta

Eta gorpu ustelduaren erakustaldi gaiztoarekin ikaratzen saiatu eta hilotz hura bera zela sinetsarazten **ahaleginduko** balira, Musiak irribarretsu erantzungo luke: Jose Morales

Nik idazleengan aurkitu ditudan argumentuak, zeinen bidez frogatzen **ahalegintzen** baitira Jainkoaren izaerari ez dagokiola substantzia gorpuztuna eta Hari ez datxekiola, hauek dira. Piarres Xarriton

Liburu honetan diziplinari propio zaion konplexutasunetik aparteko ezer ez sartzen **ahalegindu** gara. Askoren artean

Ni Belle Reven gelditu eta guztia salbatzen **ahalegindu** nintzen! Xabier Paya

Aurrezkiek tratamendu pertsonala behar zutela esaten jarraitu zuen, leihatilan dagoenak aurrezleari sentiarazi behar diola nola **ahalegintzen** den haren zifrek gora egin dezaten, eta antzeko kontuak. Xabier Olarra

Ez da inoiz halako Italiarik existitu, ez bada Italia batzen **ahalegindu** ziren haien garai bateko ametsetan. Anjel Lertxundi

Esaten ari naiz erokeriatzat hartzekoa litzatekeela, bai jauna, kontrakoa egiten **ahalegintzea**; alegia, gauza sinesgarriak sortzea, egiaren itxura izan dezaten. Josu Zabaleta

Baporeen izenetan euren jabeen pentsaera igartzen **ahalegindu** nintzen. Edorta Jimenez

Baina zinez **ahalegindu** arren -urteak eman baitzituen tema harexekin-, ez zuen lortzen egun hartan paperean idatzitakoari fundamenduzko pentsakizunik eransterik. Josetxo Azkona

-Ene jauntxo galant hori! -esan zuen izeba Petuniak, malkoei eusten **ahaleginduz** . Iñaki Mendiguren

Bizitza honetan egiaren bila saiatzen direnak eta zintzo portatzen **ahalegintzen** direnak Jaungoikoaren hirikoak dira, nahiz eta Elizan partaide izan ez. Imanol Unzurrunzaga

Bestela, karrakakoen artean bera zen bakarkako beharrak benetan bakarka egiten zituen bakarra, ostenduz beti, besteen begien menetik alde egiten **ahaleginduz** , iluntasun bilaturik ezin bazen, zokondo isiletara joz behintzat. Edorta Jimenez

Letra desitxuratzen duen abiadurak, berriz, galarazi egiten dio gogoari bidea; letra onez idazteko saioan, poliki, tentuz idazten **ahalegintzean** , ideiak etortzen hasten dira, etorria pizten da. Iñaki Iñurrieta

Denak **ahalegindu** dira hitzen batzuk esaten frantsesez. Koldo Izagirre

Polizoia berarenganaino heldu da, erdi arrastaka, zutitzen **ahalegindu** eta alkandoratik heldu dio. Harkaitz Cano

- **Ahaleginduko** naiz, Williams andrea. Koro Navarro

Marieren ibilbidea definitzen duten hitzak dira, nik uste, eta egiteko horretan **ahaleginduko** naiz. Javi Cillero

Ahaleginduko naiz egunean gertatutakoarekin eta neure buruarekin zuzenean zerikusia duen ezer ez kontatzen, 101 gau hauek eguneko edo diario gisa erabiltzeko tentaziotik aldendu egin nahi baitut. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina Joanikot ez da gizon gaixtoa, Graziana, eta geureganat erakartzen **ahalegindu** beharko genuke berriro... Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

adierazten ahalegindu (5); **ahalegindu arren** (20); **ahalegindu baita** (3); **ahalegindu behar** (59); **ahalegindu behar da** (4); **ahalegindu behar du** (7); **ahalegindu behar dugu** (23); **ahalegindu behar gara** (3); **ahalegindu behar genuke** (3); **ahalegindu beharko** (35); **ahalegindu beharko du** (5); **ahalegindu beharko dugu** (7); **ahalegindu beharko dut** (3); **ahalegindu beharko dute** (6); **ahalegindu beharko genuke** (3); **ahalegindu beharra** (14); **ahalegindu beharrean** (3); **ahalegindu da** (61); **ahalegindu dela** (4); **ahalegindu den** (7); **ahalegindu dira** (31); **ahalegindu direla** (6); **ahalegindu direlako** (3); **ahalegindu diren** (6); **ahalegindu diren arren** (3); **ahalegindu egin** (7); **ahalegindu egin behar** (5); **ahalegindu ere** (5); **ahalegindu eta** (8); **ahalegindu ez** (4); **ahalegindu gabe** (10); **ahalegindu gara** (21); **ahalegindu ginen** (14); **ahalegindu izan** (12); **ahalegindu izana** (3); **ahalegindu nahi** (10); **ahalegindu naiz** (56); **ahalegindu naizen** (7); **ahalegindu nintzen** (86); **ahalegindu nintzen arren** (3); **ahalegindu ondoren** (3); **ahalegindu zaitez** (8); **ahalegindu zara** (6); **ahalegindu zela** (13); **ahalegindu zen** (232); **ahalegindu zen atzo** (4); **ahalegindu zen horretan** (3); **ahalegindu zen joseba** (3); **ahalegindu zenean** (3); **ahalegindu zinen** (3); **ahalegindu ziren** (90); **ahalegindu ziren atzo** (3); **ahalegindua zen** (3); **aldatzen ahalegindu** (5); **aldiz ahalegindu** (5); **alferrik ahalegindu** (6); **antolatzen ahalegindu** (3); **arintzen ahalegindu** (3); **askatzen ahalegindu** (4); **asko ahalegindu** (3); **askotan ahalegindu** (4); **ateratzen ahalegindu** (8); **azaltzen ahalegindu** (4); **aztertzen ahalegindu** (5); **aztertzen ahalegindu naiz** (3); **baina ahalegindu** (3); **baino gehiagotan ahalegindu** (3); **baliatzen ahalegindu** (3); **baretzen ahalegindu** (3); **batzen ahalegindu** (4); **baztertzen ahalegindu** (5); **begiratzen ahalegindu** (3); **behin ahalegindu** (3); **bereziki ahalegindu** (3); **berreskuratzen ahalegindu** (3); **berriro ahalegindu** (5); **berriro ahalegindu zen** (3); **berriz ahalegindu** (4); **beti ahalegindu** (3); **beti ahalegindu izan** (3); **biak ahalegindu** (3); **bilatzen ahalegindu** (4); **biltzen ahalegindu** (6); **biziki ahalegindu** (7); **biziki ahalegindu zen** (3); **buelta ematen ahalegindu** (3); **dadin ahalegindu** (3); **daitezen ahalegindu** (3); **definitzen ahalegindu** (3); **definitzen ahalegindu naizen** (3); **deskribatzen ahalegindu** (3); **disimulatzen ahalegindu** (4); **egiten ahalegindu** (55); **egiten ahalegindu beharko** (3); **egiten ahalegindu da** (5); **egiten ahalegindu nintzen** (6); **egiten ahalegindu zen** (15); **egiten ahalegindu ziren** (5); **egiten ere ahalegindu** (5); **ekartzen ahalegindu** (8); **ematen ahalegindu** (28); **ematen ahalegindu behar** (4); **ematen ahalegindu da** (3); **ematen ahalegindu gara** (3); **ematen ahalegindu zen** (4); **entzuten ahalegindu** (3); **erakusten ahalegindu** (3); **erantzuten ahalegindu** (4); **ere ahalegindu** (27); **ere ahalegindu da** (3); **ere ahalegindu nintzen** (6); **ere ahalegindu zen** (5); **ere ahalegindu ziren** (3); **esaten ahalegindu** (3); **esaten ahalegindu zen** (3); **eta ahalegindu** (17); **eta ahalegindu zaitez** (3); **eta berriro ahalegindu** (3); **eta gehiago ahalegindu** (5); **eta horretan ahalegindu** (3); **eusten ahalegindu** (11); **eusten ahalegindu zen** (4); **ez begiratzen ahalegindu** (3); **ez egiten ahalegindu** (3); **ez naiz ahalegindu** (4); **ez zen ahalegindu** (3); **ezartzen ahalegindu** (3); **ezkutatzen ahalegindu** (4); **frogatzen ahalegindu** (5); **gehiago ahalegindu** (8); **gehiagotan ahalegindu** (3); **gogoratzen ahalegindu** (11); **gogoratzen ahalegindu nintzen** (3); **gogoratzen ahalegindu zen** (4); **gogotik ahalegindu** (19); **gogotik ahalegindu arren** (3); **gogotik ahalegindu zen** (6); **gogotik ahalegindu ziren** (5); **gordetzen ahalegindu** (3); **harrapatzen ahalegindu** (3); **hartzen ahalegindu** (11); **hartzen ahalegindu nintzen** (3); **hiltzen ahalegindu** (6); **hitz egiten ahalegindu** (5); **horretan ahalegindu** (11); **horretan ahalegindu beharko** (3); **horretan ahalegindu da** (3); **idazten ahalegindu** (3); **igartzen ahalegindu** (3); **ihes egiten ahalegindu** (8); **ikusten ahalegindu** (4); **imajinatzen ahalegindu** (3); **imajinatzen ahalegindu zen** (3); **irabazten ahalegindu** (7); **irabazten ahalegindu behar** (6); **irribarre egiten ahalegindu** (3); **izaten ahalegindu** (12); **izaten ahalegindu behar** (3); **jarraitzen ahalegindu** (4); **jartzen ahalegindu** (10); **jartzen ahalegindu zen** (6); **jokatzen ahalegindu** (5); **jotzen ahalegindu** (3); **kentzen ahalegindu** (11); **kentzen ahalegindu zen** (3); **konpontzen ahalegindu** (3); **lasaitzen ahalegindu** (3); **lo hartzen ahalegindu** (3); **lotzen ahalegindu** (4); **mantentzen ahalegindu** (4); **mugitzen ahalegindu** (3); **naiz ahalegindu** (4); **nola ahalegindu** (4); **onera ekartzen ahalegindu** (3); **osatzen ahalegindu** (4); **pentsatzen ahalegindu** (7); **pentsatzen ahalegindu nintzen** (3); **saihesten ahalegindu** (7); **salbatzen ahalegindu** (3); **sartzen ahalegindu** (10); **suspertzen ahalegindu** (3); **txukuntzen ahalegindu** (3); **urruntzen ahalegindu** (4); **uxatzen ahalegindu** (7); **uxatzen ahalegindu nintzen** (3); **uxatzen ahalegindu zen** (3); **zabaltzen ahalegindu** (8); **zaintzen ahalegindu** (4); **zen ahalegindu** (3); **zuzentzen ahalegindu** (4)

ahaleginduko da (69); **ahaleginduko dela** (20); **ahaleginduko dira** (37); **ahaleginduko dira gaur** (3); **ahaleginduko direla** (15); **ahaleginduko direla esan** (3); **ahaleginduko gara** (61); **ahaleginduko garela** (3); **ahaleginduko naiz** (51); **ahaleginduko nintzela** (5); **ahaleginduko nintzen** (3); **ahaleginduko zara** (4); **ahaleginduko zarete** (4); **ahaleginduko zela** (5); **ahaleginduko zen** (7); **ahaleginduko ziren** (3); **aldatzen ahaleginduko** (4); **aldatzen ahaleginduko gara** (4); **askatzen ahaleginduko** (3); **askatzen ahaleginduko gara** (3); **azaltzen ahaleginduko** (3); **baina ahaleginduko** (3); **betetzen ahaleginduko** (3); **dadin ahaleginduko** (4); **dadin ahaleginduko da** (3); **dezaten ahaleginduko** (6); **duena ahaleginduko** (3); **duena ahaleginduko da** (3); **egiten ahaleginduko** (13); **egiten ahaleginduko da** (4); **egiten ahaleginduko dira** (3); **egiten ahaleginduko naiz** (3); **egoten ahaleginduko** (3); **ematen ahaleginduko** (7); **erantzuten ahaleginduko** (3); **ere ahaleginduko** (5); **eta ahaleginduko** (7); **eta ahaleginduko gara** (4); **eta horretan ahaleginduko** (5); **eusten ahaleginduko** (5); **ez izaten ahaleginduko** (3); **horretan ahaleginduko** (12); **horretan ahaleginduko dira** (4); **horretan ahaleginduko gara** (4); **horretan ahaleginduko naiz** (3); **izaten ahaleginduko** (5); **jartzen ahaleginduko** (6); **jasotzen ahaleginduko** (5); **konbentzitzen ahaleginduko** (4); **laguntzen ahaleginduko** (3); **lortzen ahaleginduko** (9); **lortzen ahaleginduko da** (3); **lortzen ahaleginduko direla** (3); **sartzen ahaleginduko** (5)

ahaleginduta ere (3); **ahaleginduz gero** (4); **egiten ahaleginduz** (5); **eusten ahaleginduz** (5); **ez egiten ahaleginduz** (3); **hartzen ahaleginduz** (3)

ahalegintzea da (8); **ahalegintzeko eskatu** (3); **ahalegintzen ari** (37); **ahalegintzen ari da** (4); **ahalegintzen ari dira** (7); **ahalegintzen ari zela** (3); **ahalegintzen ari zen** (9); **ahalegintzen bada** (6); **ahalegintzen baita** (6); **ahalegintzen baitira** (3); **ahalegintzen baitziren** (3); **ahalegintzen da** (89); **ahalegintzen da erakusten** (3); **ahalegintzen dela** (6); **ahalegintzen den** (15); **ahalegintzen dena** (10); **ahalegintzen dira** (54); **ahalegintzen direla** (3); **ahalegintzen diren** (8); **ahalegintzen direnak** (4); **ahalegintzen ez** (3); **ahalegintzen gara** (28); **ahalegintzen ginen** (4); **ahalegintzen naiz** (48); **ahalegintzen naizela** (3); **ahalegintzen naizen** (4); **ahalegintzen nintzen** (19); **ahalegintzen zara** (10); **ahalegintzen zela** (6); **ahalegintzen zelako** (3); **ahalegintzen zen** (80); **ahalegintzen zen arimak** (3); **ahalegintzen zen bitartean** (4); **ahalegintzen ziren** (26); **alferrik ahalegintzen** (7); **arkeologia ahalegintzen** (3); **asmatzen ahalegintzen** (3); **ateratzen ahalegintzen** (4); **aurkitzen ahalegintzen** (4); **bat egiten ahalegintzea** (3); **bera ahalegintzen** (7); **bera ahalegintzen da** (6); **beste egiten ahalegintzen** (3); **betetzen ahalegintzen** (9); **biziki ahalegintzen** (3); **bizitzen ahalegintzen** (3); **da ahalegintzen** (4); **denak ahalegintzen** (3); **disimulatzen ahalegintzen** (3); **egiten ahalegintzea** (6); **egiten ahalegintzen** (29); **egiten ahalegintzen da** (6); **egiten ahalegintzen gara** (3); **egiten ahalegintzen naiz** (4); **egiten ahalegintzen zen** (5); **egokitzen ahalegintzen** (3); **ematen ahalegintzen** (10); **erakartzen ahalegintzen** (4); **erakusten ahalegintzen** (3); **erantzuten ahalegintzen** (3); **ere ahalegintzen** (11); **ere ahalegintzen zen** (3); **eta ahalegintzen** (15); **eta ahalegintzen da** (3); **eta ahalegintzen naiz** (3); **eta horretan ahalegintzen** (3); **eusten ahalegintzen** (5); **ez da ahalegintzen** (4); **ezkutatzen ahalegintzen** (6); **frogatzen ahalegintzen** (3); **gehiago ahalegintzen** (4); **gogotik ahalegintzen** (3); **gogotik ahalegintzen zen** (3); **hartzen ahalegintzen** (3); **hitz egiten ahalegintzen** (5); **horretan ahalegintzen** (11); **horretan ahalegintzen dira** (4); **idazten ahalegintzen** (3); **irakurtzen ahalegintzen** (3); **irauten ahalegintzen** (4); **iristen ahalegintzen** (3); **izaten ahalegintzen** (8); **izaten ahalegintzen da** (3); **jarraitzen ahalegintzen** (5); **jartzen ahalegintzen** (6); **jokatzen ahalegintzen** (3); **kentzen ahalegintzen** (5); **kentzen ahalegintzen zen** (3); **konpontzen ahalegintzen** (3); **lortzen ahalegintzeko** (4); **lortzen ahalegintzen** (3); **nahian ahalegintzen** (3); **ni ahalegintzen** (4); **nola ahalegintzen** (3); **saihesten ahalegintzen** (4); **sartzen ahalegintzen** (5); **sinesten ahalegintzen** (3); **sortzen ahalegintzen** (6); **sortzen ahalegintzen dira** (3); **suntsitzen ahalegintzen** (

---

ahaleginean *(corpusean ez dago; ETCn **60** agerraldi)* **1** *adlag* ahal den guztia. ik **ahaleginetan**.

Antz eman nion agure errespetagarriak **ahaleginean** zorrozten zuela belarria gure solasean parte hartzeko: boza goratu nuen eta hitzak hari buruz zuzendu. ETC-literatura, saiakera

Sakristaua milfordeko bilera-aretoko portxean zegoen, ezkilaren kanpaiari **ahaleginean** tiraka. ETC-literatura, saiakera

Barne-merkatua bateratzeko ekimena, estatuek **ahaleginean** bultzatzen zutena (XX. mendeko europarrei gauza ezaguna gertatzen zaiena), salgaien zirkulazioaskatasunari, eta diru-unitateen, pisu eta neurrien bateratzeari zegokien. ETC-literatura, saiakera

- Lagun hurkoa zinez edo benaz amatzen duenak, **ahaleginean** edertzen edo behintzat, estaltzen ditu haren okerrak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ministerio Fiskalak, deusetan galarazi gabe beste organo batzuei emandako eginkizunak, honako egiteko hau du: Justiziaren ekina sustatzea **ahaleginean** bermatuz legezkotasuna [...]. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 *adlag* ahaleginduz, ahalak eginez.

Ahaleginean , Henrikeren keinu bakoitzaz oroitzeko. ETC-literatura, saiakera

Hark ateratzen baitio, indarka eta **ahaleginean** , kuku alperrari bere ume bakar lepo-zabala. ETC-literatura, saiakera

Berriro ireki zuenean, kamiseta bat eta prakak jantzita zituen, pistola ezkutuan eta irribarrea **ahaleginean** . ETC-literatura, saiakera

BEATRIZ.- Ez zakian zer egin, eta irri. Ez zakian zer esan,, irri. Ez duk ikusi **ahaleginean** ? Itsua halakoa! ETC-telebista

NEKANE.- (**Ahaleginean**). Ez du atera nahi. ETC-telebista

ARANTZA.- (Aho-zabalik une batez; gero berriro **ahaleginean** , baina adore urriagoz) Baina, Imanol... ETC-telebista

3 *ahaleginean ari izan*

Ahaleginean ari nintzen gaineratu zitzaidan sorgortasuna gainditu nahian, nire onera etorri eta zer egin pentsatzeko, eta hartan norbaitek besotik heltzen ninduela sentitu nuen. ETC-literatura, saiakera

Eta ni **ahaleginean ari** naiz, eskuak patrikan, txistu eginez, eta ahal dudan lautasun handienarekin, paseatzaileentzat debekatuta dagoen baina zaintzaile guztiek -besteaz fidaturik- igarotzen uzten duten lorategi honetatik igarotzen... ETC-literatura, saiakera

Piztiak ondoezik behar zuen egon, zeren emakumeak, **ahaleginean ari** izanagatik, ez baitzuen lortu lehoiak ohiko ariketak egiterik. ETC-literatura, saiakera

Senarrak ez daki ez ote dagoen bera okerren, baina **ahaleginean ari** da, ETC-literatura, saiakera

Eten bat zegoen gizartearen eta erakundeen artean; euskaldunak **ahaleginean ari** ziren, erakundeak ez aski. ETC-literatura, saiakera

Zentzugabekeriaren taxua ematen zaio erabilera berreskuratzeko saiakera orori, eta bere legea oldarka inposatu nahi duen arlotearena **ahaleginean ari** denari. ETC-literatura, saiakera

Gelditu gabe ari zen ematen haizea, **ahaleginean ari** zelako batere seinalerik gabe. ETC-literatura, saiakera

MARIA LUISA **ahaleginean ari** da oraindik ere, baina ezin ditu loturen korapiloak askatu, gero eta etsiago dago. ETC-telebista

KEVIN eta ALEX kalean aurrera doaz. KEVIN zorroko artoak banaka-banaka airera bota eta ahora sartu nahian **ahaleginean ari** da. ETC-telebista

4 *ahaleginean jardun*

Kablearen muturretik tiraka, zenbait suhiltzailek **ahaleginean ziharduten**, arrantzari-bota luzeetan balantzaka, ibai-zola hil agorrak tipituan. ETC-literatura, saiakera

Lore saltzailea bazetorrela ohartu zen: besoak arrosaz beterik, **ahaleginean ziharduen** Antoinetteren aurretik pasatzeko, hura hormaren kontra bermaturik zegoela. ETC-literatura, saiakera

Hiru gizon bakarka-n interesantea dena, hain zuzen, Gandiaga ikustea da, nola **ahaleginean diharduen** irudi eta ikusmolde heredatuak errotik birrelaboratzen. ETC-literatura, saiakera

Pentsa dezakegu, hortaz, kultur produkzioaren arloa ez dela salbuespena; bertan ere praktika legitimoaren definizioa ezartzeko **ahaleginean jarduten** dute kapital kultural eta errekurtso desberdinen jabe diren agenteek. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

ahaleginetan *(corpusean ez dago; ETCn **148** agerraldi)* **1** *adlag* ahaleginduz, ahalak eginez. ik **ahaleginean**.

Ponzo, kanpora atera, eta **ahaleginetan** hasi zen, euripean. ETC-literatura, saiakera

Eta une horretantxe bururatu zitzaion **ahaleginetan** bila ari zen soluzioa. ETC-literatura, saiakera

Alabaina, ordu erdia **ahaleginetan** eman ondoren, gabarrariek tarantasa eta hiru zaldiak ezarri zituzten ontzian. ETC-literatura, saiakera

Batera eta bestera begiratu zuen, **ahaleginetan**. ETC-literatura, saiakera

Jende asko ari da **ahaleginetan** egoera berrietara egokitzeko eta gainera dirua bada, baina Gobernutik dena da trabak jartzea, dena zigilu eta bermeak eskatzea. ETC-prentsa

Etxe Zuria **ahaleginetan** hasi da israeldar eta palestinarren arteko desadostasunak konpontzeko . ETC-prentsa

Nolanahi ere, garaipentxo horrek "ahal dugula erakutsi digu, eta **ahaleginetan** segituko dugu". ETC-prentsa

Ahaleginetan jarraitu beharko dugu, Txerra Rodriguezek idatzi duen bezala: "... iraganetik eta orainetik ikasten etorkizun hobea marrazteko denon artean...". ETC-prentsa

Jarraituko dugu **ahaleginetan** eta gauza diferenteak probatzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

DON LUISek pozik begiratzen die. GAIZKA ere orduan XABIERengana hurbiltzen da. Elkarri begira geratzen dira une batez; GAIZKA zalantzan gelditzen da, baina gero eskua luzatuko diote elkarri tentsio puntu batekin, baina **ahaleginetan**. ETC-telebista

2 *ahaleginetan ari izan*

Zutik dago, eta **ahaleginetan** ari da botoiak askatzeko -nabarmena behar du izan haren asmoak-, baina ez du lortzen bere hatzak menderatzea. ETC-literatura, saiakera

Gure amak esaten zuen nire anaia adarjotzailea zela, baina Mikel Strogoff, nik uste, oso bestelako **ahaleginetan** ari zen. ETC-literatura, saiakera

Ahaleginetan ari da emakume zaharra bere osasunaren gorabeherak Elenari eman nahian. ETC-literatura, saiakera

Manifesta 5 herritarrengana eramateko **ahaleginetan** aritu da, Massimiliano Gioni eta Marta Kuzma komisarioei ulertu ezin zitzaiena azaltzen. ETC-prentsa

Gehiago zen **ahaleginetan** ari zela berari interesgarriak iruditzen zitzaizkion gauzak adierazteko, edo, behintzat, interesgarriak izan zitezkeenak, egoki esaten asmatu izan balu. ETC-literatura, saiakera

-Franz von Aland, besteren artean- **ahaleginetan** aritzen ziren tximeleta handi hura, gar esplikaezin bat beren begien aurrean jaten ari zena, harrapatzeko. ETC-literatura, saiakera

Haren aitak manatuta, **ahaleginetan** ari zen erreginarengandik ez urruntzeko eta hura nahikeriarik apalenean ere zerbitzatzeko. ETC-literatura, saiakera

3 *ahaleginetan ibili*

Ez **ibili ahaleginetan** aberastasunaren atzetik, utzi horretan pentsatzeari. ETC-literatura, saiakera

Narrutan arin arin narrutan, kuleroak airean alua agerian amorantearen zakila eskuratu nahian **nabil ahaleginetan**. ETC-literatura, saiakera

Iparraldeko vietnamdarrak **ahaleginetan zebiltzanean** Erdialdeko goi-lurraldeak eskuratu, eta horrela hegoaldeko Vietnam erdibitzeko, W. ETC-literatura, saiakera

Hala, alde batetik Franco euskara akabatu nahita **ahaleginetan baldin badabil**, bestetik geu ari gara eginahaletan euskarari "hilobira bultzaka". ETC-literatura, saiakera

Sailburuarekin eta errektorearekin harremanetan jartzeko elkartasun taldekoak **ahaleginetan dabiltzala** badakit, baina mementoz ez daukagu ezeren berririk. ETC-prentsa

Hiesaren aurkako **ahaleginetan dabiltzanez** esandakoak izan dira azkenak, baina eskoletako eragileak izan ziren lehenago, edo euren sexu berekoak maite dituztenak, edo gizonezkoen jazarpen larriak sufritu duten emakumeak... ETC-prentsa

Adi egotea adierazten du, iratzarririk izatea, erne baina **ahaleginetan ibili** gabe, gertatzen zaigunari arreta jarriz. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *ahaleginetan izan*

Eragozpenak eragozpen, **ahaleginetan** direla esan du Minguezek: "Iaz, esaterako, 65 jardunbide egin ziren sektorean". ETC-prentsa

Naturaren balio infinituari kopuru ekonomikoa jartzen **ahaleginetan** dira politika publiko zein pribatuetan hartzen diren neurrien eztabaidetan "balantza orekatu" asmotan. ETC-prentsa

5 *ahaleginetan jardun*

Haren ordez ikerlaria etorriko da, ikerketa **ahaleginetan diharduena**. ETC-literatura, saiakera

Iparraldeko Aliantzak **ahaleginetan jardun** bai, baina ezin izan du bere kabuz hiria bereganatu, eta, aurreko hirietan eta kanpaina osoan bezala, AEBen laguntza behar izan du berriro ere hartzeko. ETC-prentsa

Atzoko oldarraldiak agerian utzi du berriro Al Kaeda erakundeko buruzagiaren aginduetara liratekeen ekintzaileek AEBen eta hauen aliatu Riadeko agintearen aurkako **ahaleginetan dihardutela**. ETC-prentsa

"Aitzitik ere, Irakeko xiiten eta suniten artean gerra zibila ez dadin pitz **ahaleginetan jardungo** dute", Maples jeneralaren arabera. ETC-prentsa

Batera-koek giroa berotzeko azken **ahaleginetan jardun** zuten atzo. ETC-prentsa

---

ahaleginez *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)* **1** *adlag* ahal den neurrian.

Eman gura izanez gero euskaraz, ez, **ahaleginez**, erlatibo bidez: ETC-zientzia, zuzenbidea

Ahaleginez atxiki nuen irria. ETC-literatura, saiakera

ELENE.- Beste klase batzuetara faltatzeak ez dit penarik enaten; baina, horren klaseetara, **ahaleginez**, ez nuke hutsik egingo... ETC-telebista

Erakusketa honetan, batetik bestera joanda, saiatuta, **ahaleginez** begiratuta, ez da horrelako harremanik antzematen, edo antzematen direnek txikiak, zorizkoak eta anekdotikoak dirudite. ETC-prentsa

Hasieran adimena akuilaturik dago eta **ahaleginez** jarduten du gauza horiekiko, ikusmenari dagokionez tinko begiratzen dutenek bezala, baina ondoren, jardurera ez da horrelakoa, axolagabea baizik, eta horregatik, plazera ere ahultzen da. ETC-literatura, saiakera

Natur Zientzietan aritu bazen ere **ahaleginez**, sozialean utzi zuen arrastorik nabarmenena. ETC-literatura, saiakera

2 *adlag* ahaleginduz, ahalak eginez.

"Horregatik guztiagatik jo eta ke aritzen dira **ahaleginez** eta arriskuz euren bizialdi osoan, eta ondasunez oso gutxi gozatzen dute etengabe eskuratzen jardutearren, euren eginbeharrak betetzea ez den ezer jaitzat ez edukitzearren, eta alferraren lasaitasuna lan neketsua baino ezbehar handiagotzat edukitzearren. ETC-literatura, saiakera

Orduan, **ahaleginez**, esan zidan: ETC-literatura, saiakera

Haurrak **ahaleginez** eta adeitasunez begiratzen du salara, amaren arabera nori deika ari zaion bilatuz, biratu eta atzera erortzen da. ETC-literatura, saiakera

Oraingo arazoa bestelakoa da, jasotze eta produzitze hori autonomoki baina **ahaleginez** egitetik, erraztasunez eta normaltasunez egitera igaro behar da. ETC-zientzia, zuzenbidea

ALBERTO.- (**Ahaleginez**) Baina... nolatan esan dezaken hori...? ETC-telebista

TERESA, leun-leun ari zaio, **ahaleginez**, ELENE haserre ez dadin. ETC-telebista

3 ***ahaleginaren ahaleginez***

Ahaleginaren ahaleginez, zer edo zer gauzatzen hasia zarela antzeman duzu, baina kosta egiten zaizu hitzetan biltzea. ETC-literatura, saiakera

Bideak eta bidezidorrak, lohiez beteak zeuden denak, eta oinak irristatu egiten ziren; batzuetan behor bat sabeleraino sartzen zen putzu batean eta **ahaleginaren ahaleginez** lortzen zuten estutasun hartatik ateratzea. ETC-literatura, saiakera

Hondamen izan zitezkeenak ere egokitu zitzaizkion, eta, **ahaleginaren ahaleginez**, arrakasta bihurtu zituen. ETC-literatura, saiakera

Aita Hooperren arnasa asaldatu egin zen, eta soinu lakar bat egin zion eztarrian; baina, **ahaleginaren ahaleginez**, bi eskuekin helduz, bizitzari atxiki, eta hitz egiteko gai izan zen arte eutsi zion. ETC-literatura, saiakera

Eta halakoetan ere ez dirudi zilegi hainbat haur, kosta ahala kosta, sistemara egokitzeko porrotaren ondorioz, **ahaleginaren ahaleginez**, nekearen nekez, birrindu gabe irakaskuntza sistematik ateratzea. ETC-literatura, saiakera

Garaipena lortu duen nazioak botatako orroa, **ahaleginaren ahaleginez** gerra amaitu ondoren. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, inurri liberatua ez baitzen inoiz berriekin itzuli, sekula ez zuten jakin opor luzeak hartu zituen edota **ahaleginaren ahaleginez** zendu zen, horrenbeste erantzukizunez zanpatuta. ETC-literatura, saiakera

Ahaleginaren ahaleginez atera zaio irri-murritz huts eta beldurti bat; haiek, baina, nahikoa dute horrekin. ETC-literatura, saiakera

Ahaleginaren ahaleginez bizimodu duin hobea lortzeko eskubidea defenditu behar du. ETC-prentsa

Euskal Herriko titulua jarrita, lotsagarri gertatzen da 15 bikotetik 14 gipuzkoarrak izatea, eta beraz, **ahaleginaren ahaleginez** urtero lortzen dute Araba edo Nafarroako bikoteren bat zepoan erortzea. ETC-prentsa

---

ahaleginka *(corpusean ez dago; ETCn 7 agerraldi)* *adlag* ahaleginduz, ahalak eginez.

Zertara dator horrelako desmasia? Irakurleak akitu nahi ote ditu? Nekagarria baita, nekagarria denez, begiak, sudurra, mihia, larru-poruak eta belarriak liburuetako orrien barna **ahaleginka** ibiltzea. ETC-prentsa

Eta batzuen analisiek, beti, larrialdietako analisiak dirudite, ebakidura-edo zirt edo zart egin ondoren, matxuraren diagnostikoa uste bezain ezkorra ez izateko **ahaleginka**, Zainketa Intentsiboko Unitatean ez sartzeko modukoa behintzat. ETC-prentsa

Oso antzeko, ber denboran oso bestelako kinkan **ahaleginka** Rousseau kausitzen dugu. ETC-literatura, saiakera

Jaka erantzi eta paperezko zapi bat bekoki gainean pasatu zuen, bere buruarekin ez haserretzeko **ahaleginka**. ETC-literatura, saiakera

---

ahalegintsu *izond* egitekoetan ahaleginez aritzen dena.

Agustinek idatzia zuen jainkogabeak dabiltzaneko labirinto biribiletik salbatzen gaituen bide zuzena dela Jesus; Aurelianok, berriz, arrunkerian **ahalegintsu**, Ixion-ekin parekatu zituen, Prometeoren gibelarekin, Sisiforekin, bi eguzki ikusi zituen Tebasko errege harekin, hiztoteltasunarekin, loroekin, ispiluekin, oihartzunekin, noriako mandoekin, silogismo adarbikoitzekin. Juan Garzia

---

ahalegintxo *iz adkor* ahalegin xumea.

-Tira, Bautista, **ahalegintxo** bat -oihu egin zuen Martinek, burua leihatilatik atereaz-. Koro Navarro

Badakizu esaera zaharra: "Jainkoari erreguz, beharrari mailuz", eta gu, orain artean, hitz eta pitz aritu gara, maisuak eta bere aldekoek beren **ahalegintxoa** egin duten bitartean. Joan Mari Irigoien

Carlos Argentinok, miresmen arranguratsuz, hizpidera ekarri zuen ez zuela uste huts egiten zuenik sendo epitetoa egozten bazion Alvaro Melián Lafinur-ek zirkulu guztietan bereganatua zuen prestigioari, eta letragizon horrek, nik neure **ahalegintxoa** eginez gero, pozez xoraturik egingo ziola noski hitzaurrea poemari. Juan Garzia

Heriok kementsu hitz egin zuen, Adaren jarrera makurtzeko: arren, egin zezala **ahalegintxoa**; ezin ziola ezezkorik eman... Anjel Lertxundi

Jakina, bere aitona ezagututa, José Saramago bera ere zuhaitzen aldera lerraturik ikusten dugu: bere aldetik **ahalegintxoa** egiten zuhaitzen alde eta haien laguntzan. Pello Zabala

Gaur egun ez dago teoria globalik gai honi buruz, eta ondoren datorrena ez da, beren abiapuntuek elkarrengandik urrunduz daramatzaten ikuspuntuetatik abiatuta horrelako teoria bat zirriborratzeko **ahalegintxo** bat baizik. Josu Zabaleta

Fraide ikasleetakoak ia denak, Arantzazun teologia ikasten geniharduela egindako **ahalegintxoa** da: hain erraza baikenuen ikasle garaian lantxo zenbait ikasketekin uztartzea. Pello Zabala

Eta halaxe, hariari berriro oratu aurretik **ahalegintxo** bat egin nuen, Chim haren izena gogora ekartzearren. Edorta Jimenez

Adibidean barrendu naizenez, saia dezadan halako konparaketa **ahalegintxo** bat. Juan Garzia

Bera ere nire zain bizi den zelatan ari naiz, eta horretarako egiten dituen **ahalegintxo** uzkurrak sumatzen ditudan bakoitzeko jauzika hasten naiz pozaren pozez. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahalegintxo bat** (6)

---

ahalegintze *iz* ahalegina egitea.

Zerbitzu publiko bat eskaintzea da helburu, menturaz programa minoritarioak egin beharko ditugula onartuz, edo ahalik eta jende gehien biltzea, inolako nortasunik gabeko programak ezinbestekoak ditugula aldarrikatuz, besteren pare jartzen **ahalegintze** hori beharrezkoa ez denean? Pello Salaburu

· Ez dut esaten begirada hori bakarra denik, euskaldun adina begirada baita posible, baina barrutik egindako begirada hori egiten **ahalegintzearen** aldekoa naiz. Berria - Kultura

ahaleginzale *iz* ahaleginaren zalea.

Historia apur bat eginez abiatu eta, aroarekiko entsegu eta entrenamendu, galernak ez gaitu harrapatu bai, eta bizi dugun azken txanpa hau, Euskalmet eta beste **ahaleginzaleok** barne, uste dut pozik gozatzeko lainekoa dela. Pello Zabala

---

ahalera *iz* gramatikan, aditzaren modua, gerta daitekeen zerbait adierazten duten perpausetan.

Ahaleran, era berean, bidezkoa dute iron erroari eustea: dirot (orok. 'dezaket'), eta baita geroaldietan -en atzizkia erabiltzea ere: eginen 'egingo'. Koldo Zuazo

---

ahaletan *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *adlag* ahal izanez gero.

Ahaletan, pobre eta behartsuen eremua ere entitate pribatuen eta erruki entitateen esku utziko du estatuak. ETC-literatura, saiakera

---

ahalez *adlag* ahal delarik.

Ohidurari jarraikitzeko, **ahalez** mozorroturik edo maskaturik jitea nahi lukete, denak ihauteri giroan sartzeko gisan. Herria

Euskal idazle bezala, hori da nire kredo nagusia, gaurkoa izatea eta **ahalez** biharkoa... Ana Urkiza

---

ahalezintasun *iz* ezin izan edo gerta daitekeenaren, ezin gauza edo ahal daitekeenaren nolakotasuna.

Metafisika baten ahalgarritasunari edo **ahalezintasunari** buruzko erabakia. Ibon Uribarri

---

ahalezko **1** *izlag* ahala, ahalbidea adierazten duena.

Salatuko da hor historiaren baztertezineko eskubideen aurkako erasoa eta baita **ahalezko** historikotasun ororen oinarrien aurkakoa ere. Xabier Arregi

Alabaina, ezin zaizkie gainjarri beti objektuak eratzen dituzten harremanei: maila primario honi eslei dakizkiokeen mendetasun-harremanak ez dira adierazten nahitaez diskurtsoaren objektuak **ahalezkoak** egiten dituen harremanak gauzatzean. Xabier Arregi

Herri gisa aritzeko konpromisoa eskatzen du oraingo garaiak, denon proiektuak **ahalezko** bilakatzeko, Euskal Herria bera eraikitzeko. Berria - Euskal Herria

Itxaropena edo Beldurra faboratzen dutenak; eta, ondorioz, **ahalezko** gauza batekilako afektua sutsuagoa da. Piarres Xarriton

Erratza bertan utzirik, egiaz garbiketa ez zitzaidan batere laket, astebururako **ahalezko** ideia horren partekatzeko, Mairos alegerari telefonatu nion lanera. Itxaro Borda

Letren konbinazio berezi bat, ezohikoa, izaten da abiapuntua sigla eta akronimo gehienetan, eta izen bihurtzerainoko bilakaera **ahalezko** helmuga. Iñaki Arranz

2 *izlag* gramatikan, aditzaren modua, gerta daitekeen zerbait adierazten duten perpausetan.

Ba al dituk hamar minutu? Begira: aditz laguntzailearen orainaldia ongi jakinez gero, erraza duk gainerako forma guztiak, subjunktibo, **ahalezko** eta abarrak sortzea. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)**
> **ahalezko beste** (2); **ahalezko edo** (2); **ahalezko edo kontingente** (2); **ahalezko egingo** (2); **ahalezko objektu** (2); **ahalezko objektuen** (2); **bakarrik ahalezko** (2); **guztiak ahalezko** (4); **guztiak ahalezko egingo** (2); **politiko guztiak ahalezko** (4)

---

ahalezkotu, ahalkezko(tu), ahalezkotzen du *ad* ahalbidetu.

Bushen gobernuarentzat, Moussaouiren isiltasunak du irailaren 11ko erasoak gertatzea **ahalezkotu**. Berria - Mundua

---

ahalgabe **1** *izond* ahalik ez duena.

Zeren eta erronka hari Johanan ben Zakkai errabinoak erantzun baitzion judaismoari erakundezko egitura bizigabeki zurruna eta aztura psikologiko pasiboki setatia emanez, honek gai egin zuelarik bere talde-bizitza bereizgarria gordetzeko politikoki **ahalgabea** zen diasporaren buztinezko bizileku hauskorrean. Iñaki Mendiguren

2 *adlag* ahalik gabe.

Horregatik, **ahalgabe** uzten gaituen erlijioaren aurrean, ahala geure eskuetara bihurtzen duen eta larritasun horretatik, anxia cordis horretatik, askatzen gaituen jakinduria bat aurkezten du. Xabier Amuriza

---

ahalgabetasun *iz* ahalgabea denaren nolakotasuna.

Botere goseak hartua ninduen eta aldi berean sentimendu gozo liluragarri batek esaten zidan **ahalgabetasuna** ere bere gisako zorion bat dela. Matías Múgica

Hizkuntzaren beraren **ahalgabetasuna** gorabehera, "el fondo de la cuestión" bizkaitarrismoa da, beraz. Joxe Azurmendi

---

ahalgabetu, ahalgabe(tu), ahalgabetzen da *ad* ahalik gabe gelditu.

Han geratu nintzen, **ahalgabeturik**, eta eserita nintzela zutik egondako aldian baino ere beheratuago sentituz. Matías Múgica

Ni, haren aurrean nintzela, erabat **ahalgabetua** sentitzen nintzen. Matías Múgica

Hantxe ikusten nuen gizona, jo batera eta jo bestera, bere damatxoen tropa asaldatuaren erdian: aldi berean eskuarteduna eta **ahalgabetua**, jendarteko gizona eta erabat eroria, inportantea eta izutua, oilarra bezain harroa, erbia bezain izutia, astoa bezain tontoa. Matías Múgica

Ahalgabetua nintzen, galdua, ume bat. Matías Múgica

---

ahalgarri *izond* izan edo gerta daitekeena, gauzatzen ahal dena.

Judizio **ahalgarri** baterako predikatua da, adibidez, "metal bakoitza gorputz bat da. Ibon Uribarri

Guretzat begiespen **ahalgarri** oro sentsuzkoa da (Estetika), eta beraz, gugan oro harrezko objektu baten pentsatzea adimenaren adigai hutsen bitartez sentsuen objektuei lotzen zaien heinean baino ezin bihur daiteke ezagutza. Ibon Uribarri

Apriorizko ezagutza hutsaren dedukzio **ahalgarriaren** era bakarra bide transzendentaletik egiten dena dela onartzen bada ere, ez da hortik oraindik argitzen bera behar-beharrezkoa denik. Ibon Uribarri

Adigaiak, ordea, judizio **ahalgarrien** predikatuak direnez, oraindik indeterminatua dirauen objektuaren errepresentazioari lotzen zaizkio. Ibon Uribarri

Errealitatearen eta ukapenaren artean errealitate **ahalgarrien** eta txikiagoak diren hautemapen **ahalgarrien** bilkura jarraitua dago. Ibon Uribarri

Agerpen guztiak, beraz, esperientzia **ahalgarriak** diren aldetik, a priori adimenean dautza. Ibon Uribarri

Ondorioz, enpirikoki determinatuta dagoen nire existentziaren abstrakzio **ahalgarria** neure Norbera pentsatzailearen bakartutako existentzia **ahalgarriaren** ustezko kontzientziarekin nahasten dut. Ibon Uribarri

Begiespenaren laguntza onartu behar da hemen, beraz, sintesia honen bitartez baino ez baita **ahalgarria** . Ibon Uribarri

Zer izan behar du, bada, espazioaren errepresentazioak halako bere ezagutza **ahalgarria** izan dadin? Ibon Uribarri

Nola da **ahalgarria** Matematika hutsa? Ibon Uribarri

Zer izan behar du, bada, espazioaren errepresentazioak halako bere ezagutza **ahalgarria** izan dadin? Ibon Uribarri

Gertagarritasunari buruz mintzo garenean, bertan barne-harturik baitago gertagaiztasuna ere, **ahalgarriaren** mugako edo muturreko kasu gisa, eta halako batean gertagaitza gertatu ere gertatzen denean, ez dago zer harriturik, zer hunkiturik, zer mistifikaturik. Joxe Austin Arrieta

Ondorioz, esperientzia **ahalgarriaren** objektuena ez den beste ezein ezagutzarik ez zaigu **ahalgarri** . Ibon Uribarri

Harrezkero Agustin Jakinduriaren jabetzaren atzetik dabil, lurreko bizitzan **ahalgarri** zaigun neurrian. Imanol Unzurrunzaga

Kasu gehienetan bata bestetik amaigabeki urrun dago, eta nik inolaz ere ezin dut inferitu zerbait bere baitan **ahalgarria** izatetik abiatuta era berean harreman orotan, eta beraz, absolutuki **ahalgarria** denik. arrazoimenaren adigai huts soiletatik abiatutako froga ontologikoa da arrazoimenaren froga **ahalgarri** bakarra, baldin eta adimenaren erabilera enpiriko orotatik hainbeste goratzen den esakunearen froga nolabait **ahalgarria** bada. Ibon Uribarri

Efektuetatik kausetarako igarobidearen lege guztiak, baita oro har gure ezagutzaren sintesi eta hedapen oro ere, esperientzia **ahalgarrira** besterik ez baitira bideratzen. Ibon Uribarri

Begiespen enpiriko **ahalgarrien** sintesiaren oinarri-esakune bat. Ibon Uribarri

Osotasun jakin bat barnebiltzen dute eta bertara ez da ezein ezagutza enpiriko **ahalgarririk** iristen. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agerpen ahalgarri (4); **ahalgarri bakarra** (5); **ahalgarri bat** (4); **ahalgarri batean** (12); **ahalgarri baten** (23); **ahalgarri baten baldintza** (3); **ahalgarri baterako** (6); **ahalgarri bati** (4); **ahalgarri denak** (5); **ahalgarri guztien** (5); **ahalgarri oro** (11); **ahalgarri orok** (4); **ahalgarri ororen** (26); **ahalgarri orori** (4); **ahalgarri orotan** (4); **ahalgarri orotatik** (3); **ahalgarri osoari** (3); **begiespen ahalgarri** (8); **betegintzarre ahalgarri** (3); **da ahalgarri** (3); **den ahalgarri** (3); **enpiriko ahalgarri** (9); **esperientzia ahalgarri** (49); **esperientzia ahalgarri batean** (11); **esperientzia ahalgarri baten** (12); **esperientzia ahalgarri ororen** (9); **ez da ahalgarri** (3); **ezagutza ahalgarri** (6); **gauza ahalgarri** (9); **gauza ahalgarri guztien** (4); **hautemapen ahalgarri** (6); **judizio ahalgarri** (5); **objektu ahalgarri** (3); **ondorio ahalgarri** (5); **ondorio ahalgarri denak** (3); **predikatu ahalgarri** (9); **predikatu ahalgarri ororen** (3)

a priori ahalgarria (8); **a priori ahalgarria** (8); **a priori ahalgarriak** (3); **ahalgarria bada** (3); **ahalgarria bada** (3); **ahalgarria baino** (3); **ahalgarria baino** (3); **ahalgarria balitz** (3); **ahalgarria balitz** (3); **ahalgarria besterik** (5); **ahalgarria besterik** (5); **ahalgarria besterik ez** (5); **ahalgarria besterik ez** (5); **ahalgarria da** (12); **ahalgarria da** (12); **ahalgarria dela** (6); **ahalgarria dela** (6); **ahalgarria den** (27); **ahalgarria den** (27); **ahalgarria den heinean** (4); **ahalgarria den heinean** (4); **ahalgarria dena** (4); **ahalgarria dena** (4); **ahalgarria ez** (6); **ahalgarria ez** (6); **ahalgarria ez ezik** (3); **ahalgarria ez ezik** (3); **ahalgarria izan** (9); **ahalgarria izan** (9); **ahalgarria izan behar** (5); **ahalgarria izan behar** (5); **ahalgarria izango** (6); **ahalgarria izango** (6); **ahalgarria ote** (5); **ahalgarria ote** (5); **ahalgarria ote den** (5); **ahalgarria ote den** (5); **ahalgarria zen** (3); **ahalgarria zen** (3); **ahalgarriak diren** (10); **ahalgarriarekin duten** (3); **ahalgarriarekin harremanean** (3); **ahalgarriaren alorraz** (3); **ahalgarriaren alorraz goiti** (3); **ahalgarriaren alorretik** (3); **ahalgarriaren alorretik at** (3); **ahalgarriaren bitartez** (3); **ahalgarriaren muga** (3); **ahalgarriaren mugak** (3); **ahalgarriaren mugez** (3); **ahalgarriaren mugez goiti** (3); **ahalgarriari dagokionez** (4); **baita ahalgarria** (3); **baita ahalgarria** (3); **bat ahalgarria** (5); **bat ahalgarria** (5); **beti esperientzia ahalgarriaren** (3); **da ahalgarria** (35); **da ahalgarria** (35); **dela ahalgarria** (5); **dela ahalgarria** (5); **den ahalgarria** (3); **den ahalgarria** (3); **dira ahalgarriak** (8); **direla ahalgarriak** (4); **enpiriko ahalgarria** (3); **enpiriko ahalgarria** (3); **ere ahalgarria** (6); **ere ahalgarria** (6); **esperientzia ahalgarria** (6); **esperientzia ahalgarria** (6); **esperientzia ahalgarriak** (3); **esperientzia ahalgarrian** (8); **esperientzia ahalgarriarekin** (12); **esperientzia ahalgarriarekin duten** (3); **esperientzia ahalgarriarekin harremanean** (3); **esperientzia ahalgarriaren** (52); **esperientzia ahalgarriaren alorraz** (3); **esperientzia ahalgarriaren muga** (3); **esperientzia ahalgarriaren mugez** (3); **esperientzia ahalgarriari** (6); **esperientzia ahalgarrira** (4); **esperientzia ahalgarriren** (4); **ez baita ahalgarria** (3); **ez baita ahalgarria** (3); **ez da ahalgarria** (24); **ez da ahalgarria** (24); **ez dela ahalgarria** (4); **ez dela ahalgarria** (4); **ez dira ahalgarriak** (5); **ezagutza ahalgarriaren** (5); **ezagutza esperientzia ahalgarriaren** (3); **gauza ahalgarrien** (3); **har esperientzia ahalgarriaren** (3); **hau ahalgarria** (5); **hau ahalgarria** (5); **hau ahalgarria den** (3); **hau ahalgarria den** (3); **hautemapen ahalgarrien** (5); **izatea ahalgarria** (3); **izatea ahalgarria** (3); **litzateke ahalgarria** (3); **litzateke ahalgarria** (3); **nola da ahalgarria** (4); **nola da ahalgarria** (4); **orotan ahalgarria** (3); **orotan ahalgarria** (3); **priori ahalgarria** (8); **priori ahalgarria** (8); **priori ahalgarriak** (3); **soilik ahalgarria** (3); **soilik ahalgarria** (3); **soilik da ahalgarria** (3); **soilik da ahalgarria** (3)

---

ahalgarritasun 1 *iz* ahalgarri denaren nolakotasuna.

Filosofiak ezagutza ororen **ahalgarritasuna** , printzipioak eta hedapena a priori determinatzen dituen zientzia baten premia du. Ibon Uribarri

Osotasunaren ideia hau, ordea, arrazoimenean datza jadanik, adigai enpirikoak berekin egokiro elkarlotzeko **ahalgarritasuna** edo ahalezintasuna alde batera utziz. Ibon Uribarri

Esperientziaren **ahalgarritasuna** , ezagutza baten **ahalgarritasuna** den heinean, bertan objektu guztiak eman ahal behar zaizkigula, baldin eta beren errepresentazioak guretzat errealitate objektibo bat eduki behar badu. Ibon Uribarri

Potentzialtasun zientifiko-teknikoak determinatzen du hein handi batean egingo denaren emergentzia bera, bere **ahalgarritasunak** bere baitan daramalako egin beharko litzatekeenaren hazia. Berria - Gaiak

Izan ere, nondik atera nahi da apriorizko adigai sintetiko baten bitartez pentsatutako objektu baten **ahalgarritasunaren** izaera, objektuen ezagutza enpirikoaren forma osatzen duen sintesitik abiatuta ez bada? Ibon Uribarri

Orain **ahalgarritasunaren** postulatu honen onura zabala eta eragina begi-bistan jarri nahi ditugu. Ibon Uribarri

Osotasunaren ideia hau, ordea, arrazoimenean datza jadanik, adigai enpirikoak berekin egokiro elkarlotzeko **ahalgarritasuna** edo ahalezintasuna alde batera utziz. Ibon Uribarri

Ahalgarritasun absolutua (zentzu orotan balio duena) ez da adimenaren adigai soila, eta honek ezin du inolaz ere erabilera enpirikorik izanBere baitan **ahalgarritasun** teknikoaren marka duena. Ibon Uribarri

Izan ere, adigaiaren **ahalgarritasun** logikoa (honek bere burua kontraesaten ez duenez) gauzen **ahalgarritasun** transzendentalaren (adigaiari objektu bat dagokionez) ordez jartzeko itxurapenak aditua ez dena soilik iruzur eta gogobete dezake. Ibon Uribarri

Izan ere, adigaia hautemapenaren aurretik etortzeak bere **ahalgarritasun** soila adierazten du; adigaiari bere ekaia ematen dion hautemapena, ordea, errealitatearen izaera bakarra da. Ibon Uribarri

Apertzepzioa zerbait erreala da, eta bere bakuntasuna jadanik bere **ahalgarritasunean** datza. Ibon Uribarri

2 (hitz elkartuetan)

Esperientziaren ezagutzaren **ahalgarritasun** -baldintzak eta esperientziaren ezagutzaren objektuen izatearen **ahalgarritasun** -baldintzen arteko identitateaz ikusi bereziki A 111 eta hurrengoak, eta 192 orø eta hurrengoak. Ibon Uribarri

Aldaketen ahalgarritasunaren baldintza formala den denbora **ahalgarritasun** honen aurretik doa objektiboki, baina errepresentazio hori subjektiboki eta kontzientziaren errealitatean hautemapenen bidez da emana, beste denak bezala. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalgarritasun baldintzak (6); **ahalgarritasun logikoa** (4); **ahalgarritasun oro** (3); **ahalgarritasun ororen** (3); **ahalgarritasun soilaren** (3); **ahalgarritasuna a** (6); **ahalgarritasuna a priori** (5); **ahalgarritasuna bera** (4); **ahalgarritasuna bere** (3); **ahalgarritasuna besterik** (3); **ahalgarritasuna besterik ez** (3); **ahalgarritasuna ere** (4); **ahalgarritasuna eta** (4); **ahalgarritasuna ez** (3); **ahalgarritasuna ezin** (5); **ahalgarritasunaren apriorizko** (5); **ahalgarritasunaren arabera** (7); **ahalgarritasunaren baldintza** (18); **ahalgarritasunaren baldintza gisa** (6); **ahalgarritasunaren baldintzak** (13); **ahalgarritasunaren eta** (3); **ahalgarritasunaren oinarri** (3); **ahalgarritasunaren oinarria** (11); **ahalgarritasunaren oinarriak** (4); **ahalgarritasunaren oinarrian** (4); **ahalgarritasunaren printzipioa** (4); **ahalgarritasunen artean** (3); **apriorizko ezagutzaren ahalgarritasuna** (3); **barneko ahalgarritasuna** (3); **baten ahalgarritasuna** (8); **baten ahalgarritasunarekin** (3); **baten ahalgarritasunaren** (4); **bere ahalgarritasun** (5); **bere ahalgarritasuna** (14); **bere ahalgarritasunaren** (10); **bere ahalgarritasunaren arabera** (4); **bere ahalgarritasunean** (4); **beren ahalgarritasun** (3); **beren ahalgarritasuna** (6); **beren ahalgarritasunaren** (9); **esperientzia ororen ahalgarritasunaren** (4); **esperientziaren ahalgarritasuna** (4); **esperientziaren ahalgarritasunaren** (15); **esperientziaren ahalgarritasunaren apriorizko** (4); **esperientziaren ahalgarritasunaren oinarria** (3); **esperientziaren objektuen ahalgarritasunaren** (3); **eta bere ahalgarritasuna** (5); **ezagutzaren ahalgarritasuna** (4); **ezagutzaren ahalgarritasunaren** (5); **gauza guztien ahalgarritasunaren** (4); **gauzen ahalgarritasun** (3); **gauzen ahalgarritasuna** (6); **gauzen ahalgarritasunaren** (11); **gauzen ahalgarritasunaren baldintzak** (5); **guztien ahalgarritasunaren** (5); **harrezko gauzen ahalgarritasunaren** (3); **honen ahalgarritasuna** (3); **objektuen ahalgarritasunaren** (5); **objektuen ahalgarritasunaren baldintzak** (3); **ororen ahalgarritasunaren** (10); **sintesiaren ahalgarritasuna** (3); **sintetikoen ahalgarritasuna** (3); **sintetikoen ahalgarritasunaren** (5)

---

ahalge ik **ahalke**.

---

ahalgearazi ik **ahalkearazi**.

---

ahalgegabe ik **ahalkegabe**.

---

ahalgegarri ik **ahalkegarri**.

---

ahalgetasun ik **ahalketasun**.

---

ahalgetu ik **ahalketu**.

---

ahalgingarri *iz ipar* ahalkea eragiten duena.

Ez dukete, hain segur, denek gure aberastasun edo aiseria, bainan gora behera guzien gatik, daukate xahartasuna, biziko memento bat dela, haurtasuna eta gaztetasuna bezala eta merezi duela errespetu, elkartasun eta amodio, ezarri gabe eritasun **ahalgingarri** baten heinean. Herria

Estakuru **ahalgingarriak** aintzinatzen dituzte hala nola Frantziako batasuna lanjerrean ezarriko dugula eta holako mentskeria batzu! Herria

Joanden egunean, telebixtako leihoño hortarik, emazteño bat ari zen berriketari bati erran eta erran **ahalgingarri** dela Parisen gertatzen dena, bizpahiru urte barne bizitegiak kariotu direla %30-ez eta arrandak araberan edo berdin gehixago ere. Herria

Ahalgingarri holako negozioak, gobernu guziek bat egin behar lukete holakorik ez dadien gehiago gerta...! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahalgingarri ere** (3)

---

ahalgo **1** *iz* ahalmena.

Ekileak ez garenean, zer eginik ez daukagunez, geure baitan bildu behar dugu geure izate, **ahalgo**, sentipen guztiez, eta murgildu barne-batasunean. Joan Mari Lekuona

Sexuen arteko berdintasuna baino, Portalisen esana desberdintasunaren errekatik dator (honetan ere, Napoleonen ustea, antza denez, eragingarri), eta horren indarrez ere, aita familiakoaren **ahalgo** nagusi eta gailenaren aldetik. Andres Urrutia

2 ***ahalgo-dohain*** ahalbidea, trebetasuna.

Saltzeko gai ez diren **ahalgo-dohainak** alferrik Dirlos kondeak berak baditu ere; baina dohain horiek dirudun batengan kokatzen direnean, haien ederra adinakoa nahi nuke nik nire bizia. Patxi Ezkiaga

---

ahalguzti ik **ahalguztidun**.

---

ahalguztidun *(**638** agerraldi, **61** liburu eta **78** artikulutan; ETCn **1.851** agerraldi)* **1** *izond* guztiz ahaltsua dena, zernahi ahal duena. ik **guztiahaldun**; **guztiahaltsu**.

Baina ni, haien defendatzailea, indartsua naiz, "Jaun **ahalguztiduna** " dut izena. Elizen arteko biblia

Jaun **ahalguztiduna** gurekin! Jakoben Jainkoa gure gotorleku! Elizen arteko biblia

Oraindik ez diozu ihes egin guztia ikusten duen Jainko **ahalguztidunaren** epaiari. Elizen arteko biblia

Bildu ziren, beraz, eta beren Jainko **ahalguztidunaren** etxean lanari ekin zioten. Elizen arteko biblia

Etengabe gogoan izan bezate Jesu Kristo gure Jaunak, Jainko bizi **ahalguztidunaren** Semeak, harkaitza bezala gogortu zuela aurpegia eta ez zela lotsatu. Askoren artean

Garbituko ahal ditu Jaunak Jakoben herritik horrela jokatzen dutenak, direnak direla, bai eta Jaun **ahalguztidunari** eskaintzak egiten dizkiotenak badira ere! Elizen arteko biblia

Zu zara emaile bakarra, zu zuzen bakarra, **ahalguztiduna** eta betikoa! Elizen arteko biblia

Jaun **ahalguztiduna** da Israelen Jainkoa! Elizen arteko biblia

Hau dio Jaun **ahalguztidunak**: Nik atera zintudan larreetatik, artaldeen artetik, ene herri Israelen agintari izateko. Elizen arteko biblia

Igorri zituzten, bada, gizon batzuk Xilora eta ekarri zuten handik kerubinen gainean eseria dagoen Jaun **ahalguztidunaren** itun-kutxa. Elizen arteko biblia

Jainko Jaun **ahalguztidunak** kendu egingo die Jerusalemi eta Judari euskarri eta mantenu oro. Elizen arteko biblia

Zu zara indartsua, / zu zara handia / zu zara goi-goikoa, / zu zara errege **ahalguztiduna**, / zu Aita santua, zeru-lurren erregea. Askoren artean

Jauna, Jauna, Errege **ahalguztiduna**, zeure menpe duzu dena, eta ezin zaizu inor kontra jarri, zuk Israel salbatu nahi duzunean. Elizen arteko biblia

Guztiek Salbatzaile **ahalguztiduna** bedeinkatzen zuten, beren desira beteta ikustean. Askoren artean

Zure esku **ahalguztidunak**, ekai eragabetik mundua sortu zuenak, edozein bitarteko erabil zezakeen haiek zigortzeko. Elizen arteko biblia

Jerusalemi eraso egin zioten herrietan bizirik geldituak, urtero-urtero etorriko dira errege Jaun **ahalguztiduna** gurtzera eta Etxola Jaia ospatzera. Elizen arteko biblia

Egile **ahalguztidunaren** kontzeptua kolokan jarri, eta jendearen parte-hartzea bultzatu nahi dute aktore biek, egile askoren arteko antzezlan bat osatzeko. Berria - Kultura

Zuzendari **ahalguztidunak** arrisku hartzea erabaki du, eta, film bikaina egin badu ere, inoizko kritikarik bortitzenak jasotzen ari da. Berria - Kultura

Igandeko bozetan lehen ministro Silvio Berlusconi **ahalguztidunari** aurre egingo dion zentro-ezkerreko koalizioko hautagaia da egun. Berria - Mundua

Dmitri Piterman **ahalguztidunaren** kutunetako bat zen. Berria - Kirola

Portland izan zen aurre egiten lehena garaikur guztiak irabazten zituen Bartzelona **ahalguztidunari**, Europan eta Espainiako Ligan. Berria - Kirola

Konpainia estatubatuar **ahalguztiduna** hegazkin merkatuaren jaun eta jabe zen, Airbusen oso gainetik. Berria - Ekonomia

Auzitegi Nazionaleko epaile instruktoreen botere **ahalguztidunarekin**, legea komeni bezala interpretatzeko ahalmenarekin, ez da honezkero inor harrituko. Berria - Euskal Herria

Dena dago osorik eta betegina Jaungoiko txit **ahalguztidun** harengan. Imanol Unzurrunzaga

Eta Jainkoari erregutzen diot, berak, **ahalguztidunak**, hirukoitz eta bakarrak, bedeinka ditzala gauza hauek irakasten, ikasten, gogoan hartzen eta obratzen dituzten guztiak. Askoren artean

2 (izen gisa)

Neu naiz Alfa eta Omega -dio Jainko Jaunak-, dena, zena eta etortzekoa, **ahalguztiduna**. Elizen arteko biblia

Hari begira jarri eta lurreraino ahuspezten ziren eta, kanpotik eta barrutik makurtuta, **Ahalguztiduna** adoratzen zuten, esanez: "Adoratzen zaitugu, Kristo, baita eliza guztietan ere...". Askoren artean

Behinola nire gazte denboran, **Ahalguztiduna** nirekin zegoenean eta nire seme-alabak ere neure inguruan nituenean, beraiekin egon nintzen bezala. Askoren artean

Jainkoaren indarraren arnas lurruna da, **Ahalguztidunaren** aintzaren jario garbia; ez zaio, beraz, inolako kutsadurarik eransten. Elizen arteko biblia

Ez zuen sumatzen **Ahalguztidunaren** zigorra gainera zetorkiola berehala. Elizen arteko biblia

Olivaren joko ereduari heldu nahi dio berriro Alaveseko **ahalguztidunak**, gaur, Mendizorrotzan, Racingi aurre egiteko. Berria - Kirola

Zerbaitegatik da taldeko **ahalguztiduna**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalguztidun baten (3); **ahalguztidun eta** (7); **ahalguztidun honek** (20); **ahalguztidun hori** (4); **ahalguztiduna atera** (3); **ahalguztiduna atera zen** (3); **ahalguztiduna da** (6); **ahalguztiduna dela** (3); **ahalguztiduna eta** (6); **ahalguztiduna izan** (3); **ahalguztidunak bidali** (4); **ahalguztidunak bidali nauela** (4); **ahalguztidunak esan** (5); **ahalguztidunak esan du** (5); **ahalguztidunaren aurrean** (4); **ahalguztidunaren eskuinean** (3); **ahalguztidunaren eskuinean eserita** (3); **ahalguztidunaren eta** (4); **ahalguztidunaren izenean** (12); **ahalguztidunaren izenean diotsuet** (4); **ahalguztidunari eskerrak** (5); **ahalguztidunari eskerrak emanez** (3); **aingeruak jaun ahalguztidunaren** (3); **bartzelona ahalguztiduna** (6); **beza jainko ahalguztidunaren** (3); **da ahalguztiduna** (4); **dio jaun ahalguztidunak** (50); **du jaun ahalguztidunak** (3); **duzue jaun ahalguztidunak** (3); **entzun jaun ahalguztidunak** (3); **eta ahalguztidun** (3); **eta ahalguztiduna** (7); **eta ahalguztidunaren** (5); **eta jainko ahalguztidunaren** (4); **eta jaun ahalguztidunaren** (3); **hitz ahalguztiduna** (5); **hitz ahalguztiduna atera** (3); **jainko ahalguztidun** (14); **jainko ahalguztiduna** (29); **jainko ahalguztidunak** (6); **jainko ahalguztidunaren** (30); **jainko ahalguztidunaren eta** (4); **jainko ahalguztidunaren izenean** (7); **jainko ahalguztidunari** (10); **jainko ahalguztidunari eskerrak** (3); **jainko jaun ahalguztiduna** (4); **jainko jaun ahalguztidunak** (13); **jaun ahalguztidun** (28); **jaun ahalguztidun honek** (19); **jaun ahalguztiduna** (46); **jaun ahalguztidunak** (161); **jaun ahalguztidunak bidali** (4); **jaun ahalguztidunak esan** (5); **jaun ahalguztidunaren** (33); **jaun ahalguztidunaren izenean** (3); **jaun ahalguztidunari** (12); **milan ahalguztiduna** (3); **piterman ahalguztidunak** (3); **piterman ahalguztidunaren** (3); **zuen ahalguztidunak** (6); **zure hitz ahalguztiduna** (4)

---

ahalguztiduntasun *(orobat **ahalguztitasun**) iz* ahalguztiduna denaren nolakotasuna.

Beharrezkotasuna, amaigabetasuna, batasuna, mundutik at izatea (ez munduaren arima gisa), betikotasuna denboraren baldintzarik gabe, oropresentzia espazioaren baldintzarik gabe, **ahalguztiduntasuna**, eta abar, predikatu transzendental soilak dira. Ibon Uribarri

Badu harrokeriak batasun eta **ahalguztiduntasunaren** nolabaiteko gutizia, baina geriza bailitzan igarotzen diren aldi baterako gauzen jabetasunean. Imanol Unzurrunzaga

Diruaren **ahalguztiduntasun** hori, sentimendu samurrak dituen gizon batentzat batere gustagarri ez dena, guztiz bikaina, miragarria iruditzen zitzaion Aracili, urrearen indarrari izadiak egiten zion holokausto bat iruditzen zitzaion. Josu Zabaleta

Are gehiago, bekatu likits, itsusi eta larria zen inola ere haien begietan, baina aristokraziaren diruak nahiz Yusupov familiaren **ahalguztitasunak** edozer gauza estal zezakeen, eta hala gertatzen zen ia beti: aristokraten edozein gehiegikeria edo jokaera desegoki diruak konpontzen zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Guztiarekin ere, Sufrah mogrebia (halaxe baitzen magoaren izena) lo geratu zela soilik narkotikoaren **ahalguztitasunaz**, eta areto nagusiko hogeita lau leihoetariko batetik ihes egin zuela, Aladinok printzesa xamurki besarkatzen zuen bitartean. Juan Garzia

Itxurazko **ahalguztiduntasunetik** bat-bateko eroriko harrigarria da aro heroikoko botere barbaroaren ohiko patua. Iñaki Mendiguren

Hortaz, eta arrazoi osoz, miretsi egiten dugu, baita bere xede ezeztaezinak ere, ez bakarrik gaitz guztiak bere **ahalguztiduntasunaren** menpe daudelako, baizik eta, baita ere, bere gorengo arrazoiaz, zoritxarren, oinazeen eta irainen menpe jartzen gaituelako. Jon Alonso

Hondoratze hura orobat izan zen pentsaera jakin batena: harmonian eta munduko gauzen arteko erlazio arrazionalen **ahalguztiduntasunean** oinarrituriko pentsaerarena, alegia. Jon Muñoz

Nola jarriko zuen legetzat bere **ahalguztiduntasun** eskubidea kentzen dion zerbait? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

ahalguztitasun ik **ahalguztiduntasun**.

---

ahalik **1** ahal den ...-ena.

Tratu batera iritsi dira: muga baino lehentxeago zisternan sartuko dira, muga **ahalik** lasterren igaro, geroxeago irten... Pablo Sastre

Gero, besoa luzatu, eskua zabaldu, eta **ahalik** duintasunik handienaz jasan behar maisuak erregela xapal haietako batekin emandako kolpeak. Joxerra Garzia

Ahalik luzeen eusten zion usain egiteari, mofeta hilaren kiratsetik gordetzeko, eta, kalesako neska irakurzalearen agerraldi hura nekeak eragindako irudipen bati egotzirik, kafetegira itzuli zen berriro, liburua irakurtzen segitzeko gogoz. Anjel Lertxundi

Alkoholak, motorrak, gauero-gauero irteteak, denbora gauzez eta jendez betetzeak amets batean bizitzen eta iraganera naraman sentipen honen gainetik **ahalik** lokartuen igarotzen lagundu didate. Antton Olano

Kontzertuari begira, artamendatzen dut **ahalik** lasterrena sartzeen aitzinetik atxikitzea, edo Baionako MattinMegadendatik pasatuz, edo Euskal Kultur Erakundetik. Herria

Nire jokoa egiten saiatuko naiz, sakea **ahalik** gogorren atera eta luze jokatuz Esain frontisetik urruntzen saiatu, aukera dagoenean gogor eman tantoa bukatu ahal izateko. Berria - Kirola

Abiatu eta handik gutxira, ordea, Frantzisko santuari haiek ikusteko gogoa sortu zitzaion, eta Israelgo seme sakabanatuak biltzen dituen Jaunari egin zion otoitz, bere errukiz **ahalik** azkarren berriro elkar zitzan. Askoren artean

-Neguko biolina entzundakoan, alde egizu **ahalik** lasterren Errusiatik. Felipe Juaristi

Ez zait gehiegi gustatzen Eiffel-en garaian burdinari **ahalik** etekin gehien atera nahirik sortutako arkitektura exhibizionista: injinerua gainditzen zaio arkitektoari, teknika senari, ikuskizuna arimari. Anjel Lertxundi

-A, bueno, baina gero bila etorriko zara, ezta? - Memento hartan ez dakit zerk hitz egin zuen, edo Ixabelekin **ahalik** denbora gehiena pasatzeko nire gogoak edo bakarrik bueltatzeko gauza izango ez nintzelako kontzientziak. Joxean Sagaztizabal

Guztiz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, **ahalik** jende gehien Kristorentzat irabazteko. Elizen arteko biblia

Aitak, ohantze **ahalik** erosoena non osatuko zebilela, liburu batzuk ikusi omen zituen bazter batean. Anjel Lertxundi

Frantses nazionalista sutsu hori Déroulède jauna izan da, Barojak "fantasmón" zeritzona, eskuin-eskuineko patriota frantses bat - **ahalik** neutroena esateko -, Patrioten Liga-ren sortzailea. Koldo Izagirre

2 ***ahalik eta*** *(orobat **ahaliketa** g.er.)* ahal den ...-ena. (-en(a) daraman adjektibo edo adizlagun baten ezkerrean). ik **albait**.

Saiatu egin behar bainuen Sarak, bere azken hilabete haietan, **ahalik eta** bizimodurik erosoena izan zezan. Joan Mari Irigoien

Ahalik eta hondar busti gehien hartu eta palakadak botatzen genituen haizaldera. Pako Aristi

-Gauza bakarra egin dezaket - esan zuen Holbrookek -, aurretiazko epaiketa **ahalik eta** lasterren egin dadin ahalegindu. Fernando Rey

Zerrenda bat egin zen, eskuindar eta karlistena, eta zerrendako izen **ahalik eta** gehienak preso hartzeko agindu zen.Agintari errepublikanoek pregoi bidez abisatu zuten, danboliteroak hala kantatu zuen tan tan tatan tana, ezkutatutakoak itzultzeko etxera, inor gordeka harrapatuz gero preso hartuko zutela. Joseba Sarrionandia

Utz ezazu alde batera zure galdera, ongi baderitzozu, eta has gaitezen bion artean eztabaidan **ahalik eta** zorrotzen, ea egia aurki daitekeen. Imanol Unzurrunzaga

Hala gauzak, Teresarekin kasik egunero geratzen nintzen eta, bestela, nahiz eta ezeri erreparatzeko guztiz gogogabetua sentitu, arropa dendetara sartzen nintzen; zinemara, edo hiriko parkeetara ere joko nuen, batez ere etxera itzultzeko unea **ahalik eta** gehien atzeratu nahi nuelako, Dabiden presentzia hutsak uxatu egiten ninduelako. Patxi Zubizarreta

Banekien: **ahalik eta** lasterren zauria ebaki egin behar da, edo hobeto, kauterizatu. Joxe Austin Arrieta

Beste batzuek ulertu bai, baina gogotik saiatu dira ulertu dutena **ahalik eta** ilunen transmititzen, beste inork uler ez zezan, beren jakinduriari **ahalik eta** etekin handiena

ateratzeko, beren burua kasta baten moduan iraunarazteko. Jon Alonso

Bi lagunek ere manifestazioa zuten hizpide, eta antolatzaileen maniobrak, manifestaziora **ahalik eta** jenderik gehiena erakartzeko. Pedro Alberdi

Brusa grisa janzteko, arrapataka ibili beharra; erloju aurrean, bultzakada artean fitxatzea; makinaraino arrapaladan joan beharra; hura martxan jartzea; daratuluaz zuloa **ahalik eta** azkarren egitea; zuloak egin eta egin, beti zulo bera pieza berean; hamar mila aldiz egunean, ahal izanez gero; izan ere, azkartasun horren pentzudan daude gure diru-sariak, gure biziak. Eskarne Mujika

-Oraintxe izan behar du? - galdetu zuen Sonjak, **ahalik eta** arduragabeen. Anton Garikano

Hori eginik, denak etxera bidali zituen, lotara, hurrengo egunean **ahalik eta** zahar gehien biltzeko aginduz, kanpotarrari ohore egiteko eta nola lagundu ikusteko. Juan Kruz Igerabide

Aurkezpenak eginda, **ahalik eta** lasterren ahalegindu zen Kat eta bera tabernatik kanporatzen eta, ia sakaka, lortu egin zuen. Sonia Gonzalez

Eta arrapaladan oldartu zen karrikara, eta biderik laburrena hautatu zuen oraingoan, Negresco Kafeko hitzordura **ahalik eta** lasterren iristearren. Patxi Zubizarreta

Eta hautariago egitea, **ahalik eta** barruko eta kanpoko lokarrietatik askeago egonik, hautatzeko argiago eta kementsuago egitea da. Jenaro Garate

Kaxen artean gerturatu nintzaion, **ahalik eta** azkarren, baina ezin izan nuen saihestu; horrela esan zion Maialeni: eta? Lanik bai? Neska, Spandau Ballet elastikoa soinean zuela, serio geratu zen. Lander Garro

Hala, euri-hozberoen sarea pixka bat zabaldu nahi izan zenean, eta **ahalik eta** datu gehien batu, noren esku utziko termometroa eta plubiometroa? Pello Zabala

Ze, ni autobusetan beti **ahalik eta** aurrenen jesartzen naiz. Edorta Jimenez

Lortuko nuke, seguru aski, medikuek emandakoa erakutsiz gero, baina ez dut sustatu nahi, edo **ahalik eta** gutxiena. Xabier Olarra

Eta nik neuk ere doktoregoa **ahalik eta** azkarrenik burutratzea agindu nion 1978an. Txillardegi

Haren albotik katuka **ahalik eta** urrunen eginez, nik neuk ere iltzeak batzeari ekin nion. Edorta Jimenez

3 *ahalik eta hobekien*

Haren jakinduriak, jarrerak eta erabaki eraginkorrek proba **ahalik eta hobekien** gainditzen lagundu zidaten. Joseba Urteaga

Lenba opil bat elkarrekin janez, aho idorretan **ahalik eta hobekien** mastekatuz, Frodo eta Samek aurrera gin zuten. Agustin Otsoa

Bikotearekin batera -sei urte ezkonduta, umerik ez-, Edithen ahizpa nerabea -Avis- eta honen adiskide bat -Frederik Bywaters, 18 urte- joan ziren uharteko hondartzetan eguzkia hartu eta oporrak **ahalik eta hobekien** pasatzera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bizitzako azken urteetan, denbora **ahalik eta hobekien** baliatu nahi izan zuen, ahalik eta lan gehien eginez. Berria - Kultura

Ahalik eta hobekien tratatu izan dugu beti Milosevic», adierazi zuen epaitegiko eledun Christian Chartierrek. Berria - Harian

Literaturagile baten konpromisorik gorena **ahalik eta hobekien** idaztearena dela iruditzen zait. Ana Urkiza

Zuhur jokatzea gu gutxiago ginela onartzea eta hori **ahalik eta hobekien** ezkutatzea zelako. Joseba Urteaga

Galdeketa gogorra izan zen, baina **ahalik eta hobekien** atera nintzen, eta handik pixka batera joan ziren. Xabier Olarra

Baina Ala da nire Jaungoiko bakarra, eta zin dagit, Hargatik, ahal dudan guztia egingo dudala, eta **ahalik eta hobekien**, beste behin ere basamortua menderatzeko. Xabier Aranburu

Hara, gure aita dohatsua, gure ahalbide xumeekin **ahalik eta hobekien** saiatu gara zure egite miragarriak goraipatzen, eta zure santutasunaren bertute ugarietako alderdi batzuk bederen zure aintzarako azaltzen. Askoren artean

Saiatuko natzaizu **ahalik eta hobekien** azaltzen zergatik erabaki dudan itzulerarik gabeko egintza hori egitea. Jon Muñoz

Han, **ahalik eta hobekien** disimulatzen saiatu zen. Aritz Gorrotxategi

4 *ahalik hobekien*

Bakotxak **ahalik hobekiena** egin dugu urte berrian sartzea ospatzeko bai eta usaia xaharra den bezala elgarri eskaini osagarri eta suertezko agiantza hoberenak. Herria

Ahalik hobekien konpontzen ziren haurrak deusen eskasik ukan ez zezan. Itxaro Borda

Hunat etorri zelarik, egia den bezala erran dezadan, ez zuen berehala hartu hemengo ara; bainan azkenean jarria zen osoki gurekilakoaren **ahalik hobekiena** egiteari; guk ere hura hartua ginuen, elgarren xede onak ikusiz beti elgar hartzen den bezala. (--...). Xipri Arbelbide

ATErentzat, egitura **ahalik hobekien** zihoan, Eusko Armadak bere lehen "plastifikatzea" lortu zuen arte. Itxaro Borda

Eta harrarazi nion bertze gutun bat nik diktatua izkiriatzeko deliberoa, non, haren berritsukeria **ahalik hobekiena** imitatuz, entseiatu nintzen gazte horren amodioa esperantza ziurrago batez elikatzera. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ahalik azkarren** (8); **ahalik bizkorren** (6)
>
> **ahalik eta** (2035); **ahalik eta adostasun** (23); **ahalik eta akordio** (5); **ahalik eta akordiorik** (5); **ahalik eta argien** (10); **ahalik eta arinen** (29); **ahalik eta azkarren** (135); **ahalik eta azkarrena** (10); **ahalik eta azkarrenik** (5); **ahalik eta babes** (5); **ahalik eta bizkorren** (29); **ahalik eta boto** (5); **ahalik eta datu** (6); **ahalik eta denbora** (24); **ahalik eta diru** (5); **ahalik eta egokien** (11); **ahalik eta emaitzarik** (6); **ahalik eta eragile** (7); **ahalik eta eraginkorrena** (5); **ahalik eta erosoen** (7); **ahalik eta etekin** (15); **ahalik eta etekinik** (16); **ahalik eta gehien** (151); **ahalik eta gehiena** (21); **ahalik eta gertuen** (18); **ahalik eta gogorren** (5); **ahalik eta gutxien** (51); **ahalik eta gutxiena** (12); **ahalik eta handiena** (6); **ahalik eta hizkuntza** (5); **ahalik eta hobekien** (27); **ahalik eta hobekienik** (5); **ahalik eta hurbilen** (8); **ahalik eta indar** (6); **ahalik eta informazio** (11); **ahalik eta isilen** (14); **ahalik eta jende** (30); **ahalik eta kalte** (10); **ahalik eta kalterik** (7); **ahalik eta laburren** (5); **ahalik eta lan** (5); **ahalik eta lasaien** (10); **ahalik eta lasterren** (104); **ahalik eta lasterrena** (6); **ahalik eta leku** (6); **ahalik eta luzaroen** (7); **ahalik eta luzeen** (8); **ahalik eta modu** (22); **ahalik eta modurik** (39); **ahalik eta ondoen** (59); **ahalik eta ondoena** (15); **ahalik eta onena** (8); **ahalik eta ongien** (18); **ahalik eta oztopo** (7); **ahalik eta partida** (5); **ahalik eta puntu** (10); **ahalik eta sendoena** (5); **ahalik eta txikiena** (7); **ahalik eta txukunen** (10); **ahalik eta urrunen** (32); **ahalik eta urrutien** (12); **ahalik eta zabalena** (9); **ahalik eta zarata** (5); **ahalik eta zehatzen** (13); **ahalik eta zorrotzen** (5)
>
> **ahalik ez** (15); **ahalik gehien** (7); **ahalik gehiena** (8); **ahalik gutxien** (5); **ahalik hobekien** (5); **ahalik lasterren** (27); **ahalik lasterrena** (27); **baina ahalik** (18)
>
> **baina ahalik eta** (16); **baita ahalik eta** (6); **bat ahalik** (8); **bat ahalik eta** (7); **berri ahalik** (5); **bertan ahalik** (5); **da ahalik eta** (23); **du ahalik** (9); **du ahalik eta** (6); **dugu ahalik** (5); **dut ahalik** (9); **dut ahalik eta** (8); **edo ahalik eta** (9); **egiteko ahalik** (6); **ere ahalik eta** (16); **eta ahalik** (156); **eta ahalik eta** (133); **ez ahalik** (5); **eztabaida ahalik** (5); **eztabaida ahalik eta** (5); **gauzak ahalik** (19); **gauzak ahalik eta** (19); **guztiak ahalik** (7); **guztiak ahalik eta** (7); **guztietan ahalik** (5); **guztietan ahalik eta** (5); **handik ahalik** (5); **helburua ahalik eta** (8); **hori ahalik** (16); **hori ahalik eta** (14); **horiek ahalik eta** (8); **horri ahalik** (5); **hura ahalik eta** (6); **lana ahalik** (12); **lana ahalik eta** (10); **partida ahalik eta** (5); **prozesua ahalik eta** (9); **zen ahalik** (7); **zuen ahalik** (6)

---

ahaliketa ik **ahalik 2**.

---

ahalke *(ETCn **750** agerraldi; orobat **ahalge** ETCn **271** agerraldi)* **1** *iz* lotsa.

Okasioa haatik amodioarekin behar zen borrokatu, eta amodioak herabetasuna edo **ahalkea** zituen euskarri. Jon Muñoz

Eguneroko urratsak zuzen eramateko ongi kudeatutako **ahalkea** beharrezkoa zen eta **ahalkearen** erabat galtzea azken beltza zitekeen. Itxaro Borda

Ahalkea soberan, durduza pixka bat, hain da gaztea! Jon Muñoz

Batzuetan harritzen zarete maitemindu nahasi baten **ahalkeaz** edo asaldatzen zarete haren gainezkaldi suharrez. Jon Muñoz

Zeren ezin haren oroitzapena gorde baikenezake, nik sumindurarik gabe, hark **ahalkerik** gabe, eta zuk bihotz zimikorik gabe. Jon Muñoz

Batere **ahalkerik** gabe luzatu zuen eskua. Aingeru Epaltza

Deus gordetzekorik ez duenaren patxadaz mintzatu omen zitzaien, **ahalkerik** gabe. Aingeru Epaltza

Igorri nion Prévani behako zalu bat, **ahalkez** eta harriduraz betea ordea, egokia zena hari sinetsarazteko hark nire asalduaren arrazoia asmatu ahal izanak sortua zuela nire beldur guztia. bBeren herri espainolduetara itzuliak ziren, **ahalkeaz**, ohoreaz eta erregerekiko obligazioez bertze eginik. Jon Muñoz

Neure esker ona nahi nioke erakutsi, baina ez dakit zer egin hari mintzatzeko; eta okasioa kausi baneza ere, ez nekike agian zer erran, **ahalkearen ahalkez**. Jon Muñoz

Beldurrak berak -edo **ahalkeak** berak, beharbada- eraginik eta bulkaturik, zeren eta anitzetan beldurraren aitzinekoa ohi baita **ahalkea**, bertzeen aitzinean ergel bat bezala geratzeko trantzeaz libratzen gaituena. Joan Mari Irigoien

Mintzoa haatik hain zuen apala eta **ahalkeak** zeharo itoa, non ezin uler zitzaiokeen. Jon Muñoz

Bata ama zen, eta bertzea Hipolita, haren ohorezko dama, osabaren **ahalkerako**. Joan Mari Irigoien

Ahalkea da, besteek arbuiatzen dutela irudikatzen dugun gure ekintza baten ideiak lagun daraman Tristura. Piarres Xarriton

Izutzen gaituen gaitza **Ahalkea** bada, orduan beldur hura deitzen dugu Lotsa. Piarres Xarriton

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bere buruari nagusiturik sarri, egonmoldea eta behakoa aldatu zituen, ez **ahalke** doi bat gabe. Jon Muñoz

Berehala hartu nuen xedea; neure **ahalke** ttipiari nagusitu nintzaion; eta egin ez nuen oker batez hanturik, emakumeek egiten duten guztia egin izanaz akusatu nuen neure burua. Jon Muñoz

Baina honi, nire **ahalke** itxuratuak sekula ez zion utzi munduan barna nire atzetik etortzen. Jon Muñoz

Sinets ezazu, otoi, ezen gezurrezko **ahalke** batek ez duela deusik ere aldatu zugan dudan fidantzia. Jon Muñoz

Hasieran jendeek atxikitasun horren arrazoia haien **ahalke** soberazkoan kausitu uste izan zuten. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan)

Heldu orduko neska ttipiari sumatu nion **ahalke** itxura ikusirik, aitortzen dizut igurikitzen nuela bederen nire eginahalak alferretan galdu ez izana. Jon Muñoz

Aitor dizut bihotza hautsi didala, eta **ahalke** poxi bat ere sentitu dudala zure gehiegikeria higuingarri horretan nihaurk, zuri itsuki fidaturik, horrenbertze lagundu izanaz. Jon Muñoz

4 ***ahalke aizun*** ik **ahalkeizun**.

4a ***ahalke izan***

Izan hoztasun edo **izan ahalke**, ez du beti egiten nik kontseilatzen diodana. Jon Muñoz

Guztiek beren ezpatak gorde zituzten, ez dakit ene solasak konbentzitu zituelako, edo **ahalke** zirelako, ustez hain maite zuten lagunaren alde behatz baten emaiteko ere gai izan ez zirelako **Ahalke** ote **zen** osaba, haren ondoren. Joan Mari Irigoien

Bihotzean **nuen ahalkeari** gizarteak pairarazten zidana erantsi zitzaion eta paralesiatua geratu nintzen. Itxaro Borda

· Bere buruaz **ahalke**, ohe gainean etzan da. Aingeru Epaltza

5 ***ahalke gorritu***

Hots, bizkonde, **ahalke gorritu** zaitez zuhaur, eta zatoz zeure onera. Jon Muñoz

Sentimendu zintzoak baizik ez sorraraztera ohitua bainaiz, **ahalke gorritu** gabe entzun ahal ditudan hitzak baizik ez aditzera, merezimendu osoz erdietsi uste dudan segurantzaz gozatzera. Jon Muñoz

Baldin **ahalke gorritu** beharko nindukeen sentimendurik kausi bazeneza gutun honetan, zeure adiskidantza barkaberaz estal ezazu. Jon Muñoz

Batbederak gisa horretara hartzen baitu sendotasuna munduan, eta ez **ahalke gorrituz** eta negarrez, moja haiek belauniko bazkaltzera behartzen zintuztenean bezala. Jon Muñoz

Nehoiz ez dut, dudarik gabe, zure aitzinean **ahalke gorritzea** onartuko. Jon Muñoz

Ahalke gorritzen da emakume izateaz, horrelako gehiegikeriak egiteko gauza den emakume bat ikusirik. Jon Muñoz

Gutxiago mendeka ninteke maiteminetan dela aitortzeaz **ahalke gorritzen** bide den emakume handios batez? Jon Muñoz

Nahi bai nik, ohartu bainintzen bertze emakumeei behatzen zietenean, ez zirela **ahalke gorritzen**. Jon Muñoz

Ikasleak hezten hasia zarenez, irakats iezaiezu trufarik ttipienaz ez **ahalke gorritzen** eta harritzen. Jon Muñoz

Nola **ahalke gorrituko** den bere lehen gutuna zuri emanik! Jon Muñoz

5 ***ahalke gorritan***

Gizonek eta emakumeek, asko behatu zidaten, eta gero ahapetik mintzo zitzaizkion elkarri; ongi nekusan nitaz mintzo zirela: **ahalke gorritan** jartzen ninduen horrek; ezin nuen erremediatu.· **Ahalke gorritasunez** hain zuzen. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalke eta (5); **ahalke eta lotsa** (3); **ahalke gorritu** (3); **ahalke gorritzen** (8); **ahalke gorritzen naiz** (3); **ahalke hori** (3); **ahalke izan** (5); **ahalke nintzen** (4); **buruaz ahalke** (4); **ene buruaz ahalke** (3); **eta ahalke** (7); **ez ahalke** (3); **nitaz ahalke** (3)

---

ahalkearazi, ahalkearaz, ahalkearazten *(orobat **ahalgearazi**)* du *ad* ahalketzera behartu, lotsarazi.

-Eta ene senarra izan nahi duzula **Ahalkearazten** nauzu, okaztatzen nauzu. Eneko Bidegain

Nor ez da orroit ere haren boz ederraz, bai elizan edo bertze okasionetan? (oraiko telebixtako kantari asko **ahalgearaziko** zituen...). Herria

---

ahalkegabe *(orobat **ahalgegabe**)* **1** *izond/iz* lotsagabea.

Izan ere, gero, bizitza errealean, nik erabil nitzakeen mila hitzen aitzinean, Mattinek bakarra edo bakar batzuk erabiltzen zituen, guztiz mintzen nindutenak eta bere mihi **ahalkegabeaz** jaurtikitzen zizkidanak. Joan Mari Irigoien

Merkatuak bi neska-mutil koskorrei irribarre egiten ziela iduri zuen, haren erraldoi sabelaren idilio **ahalkegabea** baitziren, haren abesti librea. Karlos Zabala

Ez al dakik ezen **ahalkegabeak** jaten dituela azkenean eper erreak, eta ahalkorrak ogi-mokorrak? Joan Mari Irigoien

2 (adizlagun gisa)

-Hara! -erantzun zion Cadinek **ahalkegabe**-. Karlos Zabala

---

ahalkegabekeria *(orobat **ahalgegabekeria**) iz* lotsagabekeria.

Bere **ahalkegabekeria** graziadun hura guztia gorabehera, bere bekatutxoak eta gezurrak gorabehera, sekula ez zion utzi Existentzia Hotelaren printzipioetan sinesteari. Oskar Arana

---

ahalkegabeki *adlag* lotsagabeki.

Izan ere, nengoen tokian nengoela, ez al nuen hagitzez ere hobe neure mihiaren gobernatzea eta isilik egoitea ezen ez ausartki eta **ahalkegabeki** hitz egitea? Joan Mari Irigoien

Halatan, irri maltzur batekin umiliazioneari umiliazionea eransten niola eta atsekabearen eta sufrimenduaren azal minduan hatz egiten, bihozgabeki eta **ahalkegabeki**, erran nion: [...]. Joan Mari Irigoien

---

ahalkegabetasun *iz* lotsagabetasuna.

Nahiz eta, geunden adinean, buruan eta bestetan bor-bor dirakien guztia gupidarik gabe elkarri botatzeko behar, sen eta **ahalkegabetasuna** nabarmendu ohi diren [...]. Juan Garzia

---

ahalkegarri *(corpusean **ahalgegarri** soilik) izond* lotsagarria.

Nire esku dardaratiek, gordailu **ahalkegarri** hori harturik, esku tinko eta lasai batek emana dela sentituko dute! Jon Muñoz

Gaztaroko sekretu **ahalkegarria** bailitzan. Ana Urkiza

Ez zuen laguntzen Tom gizendurik egoteak, behialako mardotasun hura ia erabateko potolotasun **ahalkegarri** bihurtu izanak. Oskar Arana

Badira mintzaira egokiak, behar bezalakoak eta badira mintzaira txarrak, **ahalkegarriak**, lotsagarriak. Herria

Zirkoetan eta plazetan egiten diren zezenen eta basabereen lasterkatzeko ikusgarriak eta deabruen baina ez gizakien ohidura odoltsu eta **ahalkegarri** horiek. Piarres Xarriton

Amaren gorpua nolabait orain hire etxean dagoelarik, **ahalkegarri** gertatzen zaidak gaurkoan hiri besterik ezer aipatzea. Txillardegi

Seme bat amarekin etzatea **ahalkegarri** zela. Gotzon Garate

Zu bezain abila eta indartsua denean, gerorako **ahalkegarri** izan litezkeen gauza batzuk gordean eta isilean atxiki behar dira. Itxaro Borda

Pierre Diharce-k, Zainketa Komiteko Hiriart eta Harismendi herritarrak ondoan zituela, Herriko Etxeko balkoitik euskaraz leitu zuen Sara, Itsasu eta Azkaine herriak **ahalkegarriak** zirela zioen dekretua. Elena Touyarou

Oro zaizu damugarri, mingarri, **ahalkegarri**. Xabier Montoia

Ahalkegarria zaizu ahulezia, tipitatik kiroletarako erakutsi duzun ezintasuna. Xabier Montoia

Ahatara bakoitzean euskalduntzen ninduen, ene onanismo gastronomikoaren bizio **ahalkegarria** azaltzen nion neskari, armairuetan ikastolako atorrak eta Nafarroa Oinez 95eko kirol galtza pareak bilatzen nizkiola. Itxaro Borda

Haietarik bat, kronikagilearen **ahalkegarri**, ETAkide izateagatik kondenatua zen, eta profugo dabil oraindik. Berria - Kultura

---

ahalkegarrikeria *(corpusean **ahalgegarrikeria** soilik) iz* lotsagarrikeria.

Kanpoak zoragarriak dira eta amets poetikoetan, espantagarrietan irudimena hegalda litaike, errealitatearen mustrokeria ez balitz hor, egun guzietako itsuskeria, **ahalkegarrikeria**, ez balute erokeriaren eta herioaren herstura zorrotz eta sarkorrek zure muina ixtant guziz murtxikatzen, higatzen. Michel Oronoz

---

ahalkeizun *(orobat **ahalke aizun**) iz* desohorea, laidoa, lotsaizuna.

Hemen neure buruaz lotsaizuna eta **ahalkeizuna** eskatzea izango da, ikusirik zenbat izan diren bekatu larri bakarragatik damnatuak, eta zenbat aldiz nik merezi izan dudan neure honenbeste bekatugatik betiko damnatua izatea. Patxi Altuna

Aise sumatu zuen ezen hiruren artean hautu bat egitea, bere burua galtzea zela; ezen hiruretan lehen desleiala izatearen **ahalke aizunak** hobetsia izutuko zuela. Jon Muñoz

---

ahalkeizungarri *(corpusean **ahalkizungarri** soilik) izond* ahalkegarria.

Ahalkizungarriak gara! -zehaztu nion gogor belarri zulora, hira itxinduak gordetzen saiatuz eta ika-mika sugarrak nigan itzaliz. Itxaro Borda

---

ahalkekor *izond/iz* lotsatia.

Ahalke gabeak ditu epher erreak. Zer **ahalkekorrak**? Patziku Perurena

---

ahalkemangarri *izond* ahalkea ematen duena, lotsagarria.

Ez al da hau guztia **ahalkemangarria**? Pello Salaburu

Ahalkemangarria bada ere, horiek eta anderearekilako aiherkundea ziren nire paisajeak. Jose Angel Irigaray

Ahalkemangarria duk, bai, Extremaduratik ekarri dituzten goseak hildako hok ari gaituk grebara bulkatzen makinistok gai ez garelakotz pausaldi mendrena egiteko, ustelduak gaudek, nardatzekoa duk, Eustakio. Koldo Izagirre

Sos pizar batzuk dauzkadanean -aski manera **ahalkemangarrian** erdietsiak, zertarako uka-, ardo baten hartzerat-edo bertaratzen naiz. Jose Angel Irigaray

---

ahalkerazi, ahalkeraz(i), ahalkerazten du *ad* ahalketzera behartu.

Lehen puntua izango da gogora ekartzea lehen bekatua, aingeruek egina, eta gero adimena hausnartzen horrexen gainean, azkenik nahimena, hau guztia oroitu eta aditu nahirik, nerau gehiago lotsarazteko eta **ahalkerazteko**, konparatuz aingeruen bekatu batekin neure hainbeste bekatu, eta haiek infernura joan zirela bekatu bategatik, zenbat aldiz merezi ote dut nik joatea hainbestegatik. Patxi Altuna

---

ahalkeria *iz* ahalkea, lotsa.

Erran behar dizut oraino, ohi bezala bidean harturiko gutun batean jakin nuenez, ezen abandonatua izatearen beldur eta umiliazio ttipiak doi bat nahasi zutela debot latz horren **ahalkeria**. Jon Muñoz

Atxiki ahal nintzaiola, gehiegizko **ahalkeriaren** beldurrik izan gabe, soilik adeitasunik hotzenaren adierazpideei. Jon Muñoz

Gutunok egunoro irakurtzeko **ahalkeriara** dut neure burua behartuko, nire malkoek gutunon azken aztarnak ezabatuko dituzten arte. Jon Muñoz

Bakardade luze hark, bazterraldi latz hark, gure gizonik atseginenak izutuak zeuzkan **ahalkeriazko** bernizadura bat zuen nigan ezarria. Jon Muñoz

---

ahalketi *izond/iz* lotsatia.

Hamar luis eskaini nizkion zerbitzu xume horren truk: baina neska **ahalketi** bat baizik ez nuen kausitu, herabekeriez betea edo ahalketsua, ez neure hitz ederrez ez diruaz arrazoipidera nekarkeena. Jon Muñoz

Beti lurrera begira ikusi zuen, neska **ahalketi** baten gisan gorritua, ahoa irekitzera ere ausartzen ez zela. Fernando Rey

Azken finean Dancenyk Volanges ttipiarekin duen jokabidearen eta nik Tourvel andre **ahalketiarekin** dudanaren artean, gehienaren eta gutxienaren arteko aldea baizik ez dago. Jon Muñoz

Emakume **ahalketi** sentikor hori hainbat gehiago izutzen du sentimenduak presunak baino. Jon Muñoz

Horretarainoko zentimetro urrien tartea gainditurik, bakoitza bere kontrarioa ukika ari zen orain, tribu afrikarren bateko esploratzaile **ahalketiak** iduri, aspaldi handian elkar ikusi gabe eta bata bertzearen azterrean. Aingeru Epaltza

Banakusazu, bizkonde, jantzi arinetan, urrats **ahalketi** eta neurritsuz ibiltzen, eta nire garaileari segurantzarik gabeko esku batez atea zabaltzen? Jon Muñoz

Ahalketia eta debota da, eta beraz hotza eta iharra dela diozu? Jon Muñoz

Gidatu ditut haren urratsak hala lubaki bat gainditu behar izan genezan; eta, nahiz oso arina den, emakume hori are da lotsatiagoa: jakinen duzu **ahalketiak** beldur izaten

direla lubakitik aitzina jotzeko. Jon Muñoz

Plazerrik ba ote da **ahalketiekin**? Jon Muñoz

Ahalketi eder hura ez zen bazkaltzeko orena arte jin, eta jakinarazi zuen buruko min handia zuela. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahalketi eta** (3)

---

ahalketsu *izond* ahalkez betea.

Hamar luis eskaini nizkion zerbitzu xume horren truk: baina neska ahalketi bat baizik ez nuen kausitu, herabekeriez betea edo **ahalketsua**, ez neure hitz ederrez ez diruaz arrazoipidera nekarkeena. Jon Muñoz

---

ahalketu, ahalke(tu), ahalketzen *(orobat **ahalgetu**)* **1** da/du *ad* lotsatu.

-Aitari hitz eman nioan, eta bete egin behar nian hari emanikako hitza, nitaz **ahalke** ez zedin amoreakatik, ezta nihaur neure buruaz ere. Joan Mari Irigoien

Maitasun sentimendu hark eraginik-edo, **ahalketu** nintzen, halako batean, hura bakarrik uzteagatik eta harengan ez sinesteagatik. Joan Mari Irigoien

Gelazain herabekeriez bete hura hanbatenaz gehiago **ahalketu** zen, non nire asmoak sendotu nahi izan zituen zital hark ezarrarazi baitzion janzkera bat urtaroaren araberakoa, ez ordea zilegizkoa. Jon Muñoz

Gizon hori Parisen jaioa balitz bezain frantsesa da, eta nola zahartua baita ateratzen zaizkio gauza batzuek erakusten dutenak haren lehia halako gisan non **ahalketzen** baitzara haren entzutean edo, horretaz penarik ez hartzeko, bere adin handiak zentzua galarazi diola asmatzen duzun. Piarres Xarriton

Ezin adieraz diezazuket zenbatez ere nintzen **ahalketua**: beharrik han ez zen ama baizik. Jon Muñoz

Begiak hertsi nituen, **ahalketurik**, barrabaskerian harrapaturiko haurrak bezala. Aingeru Epaltza

Gainera, erabat **ahalketurik** barkazio eske zerbitzariarengana bueltatu nintzenean, hormako ordulariagatik konturatu nintzen ordu erdi pasatua zela zuzendariarekin eta bulegoko bezerorik hoberenarekin nuen hitzordutik. Ramon Saizarbitoria

-Aitak aurpegira txistu egin izan balio, ez al zuen zazpi egunez **ahalgeturik** egon beharko? Jose Antonio Mujika

Horixe, edo menturaz ama **ahalketzen** zuen arrebaren konturen bat komentatu behar zidan, ez zuen alabarekin harreman gozoa ukan. Koldo Izagirre

Horregatik **ahalketzen** nau Eustakiok ageri dien gogortasun honek. Koldo Izagirre

Lagunok! Lotsatzen eta **ahalketzen** gaitu pagano batek sakonki egia hau ulertu izanak, gu geu urruti geratzen garelarik, arrotz bezala. Joan Mari Lekuona

Beldurrak **ahalketu** ninduen. Iñaki Segurola

Deus guti **ahalketzen** ninduen norekin bai-norekin ez hautu krudela egiteak. Aingeru Epaltza

Ahalkea da, alabaina, **ahalketzen** gaituen ekintza bati darraion Tristura. Piarres Xarriton

Ez naiz behin ere arranditu edaten dudana edateaz, baina **ahalketzeko** arrazoirik ere ez dut ikusten. Aingeru Epaltza

2 (era burutua izenondo gisa)

Isilik gelditu zen hantxe, izterrean azkura nabaritzen hasi zen arte, deabru **ahalketua**. Koldo Izagirre

Anaia **ahalketua** sukalderatu zen, Jakesen lehen auzo xifritua itzaletik segika zekarrela, madarikari. Itxaro Borda

Eta ni karkailaka lerratzen nindunan hire aurpegi **ahalketua** mirestean. Itxaro Borda

Pentsa dezakezu nire behako **ahalketuak** ez zirela ausartzen nire garailearen begiak bilatzera: baina modu apalagoan zuzendurik hari buruz, berehala jakinarazi zidaten sorrarazi nahi nuen ondorioa ari nintzela erdiesten. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahalketu egin** (3); **ahalketu nintzen** (6)

---

ahalkez *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi)* **1** *adlag* lotsaturik, lotsaz.

Zakua bizkarrean, ireki berri zen mendi maxelan gorako bideari uko eginez, aintzira hegiko ohizko xendratik nenbilen, ondikotz eta **ahalkez**. ETC-literatura, saiakera

Ahalkez kristaletan zehar beheiti begiratu nuen. ETC-literatura, saiakera

-Bihar libre egonen naiz egun osoan -esan diot, **ahalkez**. ETC-literatura, saiakera

Eta hori esanik, **ahalkez** hartu zuen andrea bere etxean eta bere jardinera eraman eta han, konpainia egiteko beste inor ez baitzen, esan zion: ETC-literatura, saiakera

Oin-puntetan sartu ginen, **ahalkez** ia. ETC-literatura, saiakera

Emil jainko bat balitz bezala hurbiltzen zaio, zangoak ukitzen dizkio **ahalkez** erlikiak balira bezala, bestea isilik geratzen da ohi duen bezala, begiradarik ere eskaintzen ez diola. ETC-literatura, saiakera

Gazte-gazterik hiriratzean, frantses itsaso zabal haren erdian, **ahalkez**, baztertzen ahalko nuen ene herriko hizkuntza. ETC-literatura, saiakera

Emakumeak hari begiratu, eta **ahalkez** egin zion irribarre. ETC-literatura, saiakera

Ahalkez -ohiz kanpokoa Lilarengan-, aditzera eman zuen problema ezin zitekeela egin testuan errore bat zegoelako, baina ez zekiela zein zen. ETC-literatura, saiakera

-Pentsatuko diat -esan zion **ahalkez**. ETC-literatura, saiakera

Nire mahaira itzultzea erabaki nuenean, Fernando, haren aita, nire aldamenean agertu, eta, **ahalkez**, dantza egin nahi ote nuen galdetu zidan. ETC-literatura, saiakera

Biok gosalduta geundelarik eta, egia esan, zereginik ez (hitz horren aurrean begiak apaldu ditugu biok, **ahalkez**), kalakan hasi, eta azkar joan da denbora. ETC-literatura, saiakera

Ahalkez begiratu zuten beren autoko zorura, han botila hutsak pirritan eta klin-klon-klun ari baitziren. ETC-literatura, saiakera

2 *ahalkez egon*

Egoera, egia esan, hain da arrunta, hain sarri ikusten dugu halakorik, non guztiok ere **ahalkez baikaude**: Tausk, lotsagarriro, anaia txikiarengana jo behar izan duelako; Hubert, Tausk, beste behin ere, alferrik izorratzera datorkiolako; ni neu, hain gertakizun-ildo konbentzionalagatik. ETC-literatura, saiakera

Maite, bizkitartean, **ahalkez dago**, bazterretara so. ETC-literatura, saiakera

3 *ahalkearen ahalkez*

Alta, Ixabelen herriko bide seinalea ikustean, gibelera itzultzekotan gelditu zen, **ahalkearen ahalkez**. ETC-literatura, saiakera

Oroitu zen postako funtzionarioaren aurrean lehertzear egon zela, **ahalkearen ahalkez**. ETC-literatura, saiakera

Bittor, **ahalkearen ahalkez**, lurraren pean sartuko zen, baina ezin zuen mugitu. ETC-literatura, saiakera

Eta bozak eta txistuak ez ziren isiltzen, eta nola anaiak, ezinaren ezinaz, burkoaren azpian gorde behar izan zuen bere burua, aitak eman zizkion azoteen ondotik, hala gorde behar izan nuen nik neurea burusien azpian, **ahalkearen ahalkez**. ETC-literatura, saiakera

---

ahalkizungarri ik **ahalkeizungarri**.

---

ahalkor *izond* ahalketia, lotsatia.

Aztalak zoladuran klaskaraziz, atea berdin, nihaur utzi ninduen, irri **ahalkor** zozoa ezpainetan dilindan eta Sud Ouest ahurrean. Itxaro Borda

Eüskarak ezarri naü denboran **ahalkor**. Herria

Ez al dakik ezen ahalkegabeak jaten dituela azkenean eper erreak, eta **ahalkorrak** ogi-mokorrak? Joan Mari Irigoien

---

ahalmen[1] *(orobat **almen** g.er.)* **1** *iz* zerbait egiteko ahala, eskua edo gaitasuna.

Ahalmen hauek adimena, juzgamena eta arrazoimena dira. Ibon Uribarri

Ezer gutxi zen; baina Jainkoaren **ahalmenak** izugarri hazarazi zuen, eta, etengabeko ekaitzagatik itsasoko ibilia egun askotan luzatu arren, nahikoa izan zen guztien premiak betetzeko, helburu zuten portura, Anconara alegia, iritsi arte. Askoren artean

Otoitzerako zaletasuna eta otoitzaren **ahalmena**. Askoren artean

Noraino heltzen da gure ezagumenaren **ahalmena**? Jenaro Garate

Adimena oro har erregelen **ahalmen** gisa definitzen bada, orduan juzgamena zerbait erregelei menperatzeko **ahalmena** da. Ibon Uribarri

Ikusmenaren **ahalmena** neurtzea ardura handiko arazoa izan daiteke; baino ikusmena neurtzeko ikusi egin behar da, ikusmena behar da. Jenaro Garate

Badela Izaki betegin bat, gorputza ez dena, ez eta gorputz baten barneko **ahalmena** ere, izaki hori Jainkoa bera dela. Xabier Kintana

Zergatik jipoitu ote naute deabruek, eta zergatik eman ote die Jaunak niri kalte egiteko **ahalmena**? Berria - Kirola

Orduan, argi handi bat agertu zen itsasontzian, eta argiarekin batera Jainkoak emaniko barealdia egin zen, gizon santuak bere eragin miragarriaz haizeari eta itsasoari agintzeko **ahalmena** balu bezala. Askoren artean

Onartu zuten guztiei, ordea, Jainkoaren seme-alaba izateko **ahalmena** eman zien" (Jn 1, 11-12). Joan Mari Lekuona

Erraten dut oraino **ahalmena** edo boterea honela hartuz geroz definitzen ahal dela zerbaiten jarduteko edo egiteko gaitasun hurbila. Piarres Xarriton

Seigarrenekorik, erraten da arimaren esentziari edo zerbaiten egitera daraman haren **ahalmenari** datxekion kalitate iraunkorra dela arimaren ohitura. Piarres Xarriton

Guk ezin genuen berak egindakoaren zehaztasuna berretsi, grisen eskalan ikusteko **ahalmenarekin** nahasten baitzen kolorearen ikusmena gure begietan. Xabier Olarra

Froga seguruak ditugu, bada, hau esateko: alegia, zauri sakratu haiek, Serafinen ekintzaz garbitu, argitu eta sutu egiten duen Goikoaren **ahalmenaz** inprimatuak izan zirela. Askoren artean

Jakizu badirela gauza adigarri batzuk giza adimenak, bere izaeraz eta **ahalmenaz**, uler ditzakeenak; baina badirela, halaber, izatearen eremuan, berak bere izaeraz edo bestela ere inola ezin uler ditzakeen izakiak eta gauzak. Xabier Kintana

Hots, bereizi behar direla *in actu* edo ekitez izatea eta *in potentia* edo **ahalmenez** izatea. Piarres Xarriton

Zeure begiez behatzen diezunean, begiz hautemateko zeure **ahalmenaren** arabera hautematen duzu. Xabier Kintana

Bakoitzak bere **ahalmenaren** arabera, bakoitzari bere beharren arabera. Iñaki Heras

Ez dut definitzen gizakia bere **ahalmen** edo potentzien bitartez, adibidez bere adimenaz, Aristotelesek, Tomas Akinotar Santuak eta razionalistek ohi duten eran; bere funtsezko izanaren bitartez baino. Jenaro Garate

Horrela, aztertu ondoren, **ahalmenen** hirutasuna aurkitzera iristen da: oroimena, adimena eta nahimena. Imanol Unzurrunzaga

Norbaitek zerbait **ahalmenean** edukitzeak ez dakar horrek nahitaez egintzara iragan behar duenik; batzuetan bere lehen egoeran irauten du, dela oztopo batzuengatik, dela **ahalmena** egintza bilakarazten ez saiatzeagatik. Xabier Kintana

Horretara, existitu egiten da, baina ez existentziarengatik; eta, era berean, bizi da, baina ez bizitzagatik; ahal du, baina ez **ahalmenarengatik**, eta badaki, baina ez zientziaren batengatik. Xabier Kintana

Horien iturriak gogamenaren hiru **ahalmenak** dira: "Gure ezagutza oro (A) sentimenetatik abiatzen da, hortik (B) adimenera doa eta (C) arrazoimenera iristen da". Askoren artean

Anaia ez-apaiz horiek ez dute inola ere **ahalmenik** penitentzia ezartzeko. Askoren artean

Adimena ezagutza positiboaren **ahalmena** da (utilitatearena), arrazoimena espekulazioarena (egiarena). Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horregatik eman zion Jainkoak hain **ahalmen** handia, zeren gorputz-arimetako gaitzak miragarriro sendatzeko **ahalmen** miragarria lortu baitzuen. Askoren artean

Argazkiak "gure sinesmena bereganatzen duen **ahalmen** irrazional bat du". Josu Zabaleta

Gure izatearen helburu gorenak arrazoimenaren **ahalmen** espekulatiboaren menpean jarriko lituzke. Ibon Uribarri

Lotura hori dela eta, filosofia eta **ahalmen** politikoa bateratzeko asmoz jorratu zuen Platonek Ideien teoria. Askoren artean

Enpirikoa dena **ahalmen** intelektual hutsaren aplikazioaren edo erabileraren baldintza besterik ez da. Ibon Uribarri

Kanten arrazoimena **ahalmen** psikologiko baten moldean pentsatuta baitago, baldintza batzuen gatibu dago bere jardueran (beste **ahalmenen** baldintzen gatibu: sentimena, adimena). Askoren artean

Ez dela hartarainokoa hainbesteko losintxa eta sona jasotzen duen Internet eta merkataritza elektronikoaren **ahalmen** ekonomikoa. Iñaki Heras

Otoitzaren **ahalmen** harrigarria! Askoren artean

Elkarlotura hori ez da sentsu soilaren eta begiespenaren lana, baizik irudimenaren **ahalmen** sintetiko baten produktua. Ibon Uribarri

Ahalmen imitatzailea ez da sortzailea, h[au] d[a], ezagutza ez zen sortu bertan arrazoimenetik. Ibon Uribarri

Jainkoak goiko **ahalmenetan** nahi du bizi, oroitzapenean, adimenean eta borondatean. Joan Mari Lekuona

Adimen hau ere ez baita gorputz baten barruko **ahalmena**, errealitatean bera isurtzen deneko gorputzetik banatua izanik. Xabier Kintana

Arrazoitzeko **ahalmenari** dagokionez, gorputzetan aurkitzen diren esfera banatuen adimenekin konpara daiteke. Xabier Kintana

3 aingeruen sailkapeneko maila baten izena.

Eta ama ospetsu eta beti Birjina Maria txit dohatsuari; Mikel, Gabriel eta Rafael dohatsuei eta espiritu dohatsuen talde guztiei: serafin, kerubin, **ahalmen**, nagusi, aginte, botere, indar, aingeru eta goiaingeruei. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baliteke nire perpaus hauek, "kargu, maila, maiestate eta **ahalmen**-igoera", zuretzat ulergaitz gertatzea, eta galdetu didazu ea nola sar ditzakedan ideia asko adiera bakar batean. Xabier Kintana

Ez zaigu zilegi zeregin hauek gure **ahalmen** ezaren aitzakiaren bidez baztertzea beren konponketa gauzen izaeran balego bezala. Ibon Uribarri

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zauri sakratuen mirari-**ahalmena**. Askoren artean

"Indar guztiz maitatzea" da, jarduera eta praktika perfektuez maitatzea, menpean hartuz abere-**ahalmenak**, kanpoko zentzuak eta ahala. Joan Mari Lekuona

Lehenbiziko mediku ikertzaileek gogo-**ahalmen** bakar baten hipertrofiatzat hartzen zituzten, batzuetan, savanten trebetasunak. Xabier Olarra

J.D., kasurako, pertzepzio-**ahalmen** bikainaren jabe izan arren, ez zen oso marrazkilari ona. Xabier Olarra

Zer da Naturaren argia? Zalantzan jarri ezin diren emaitzak sortzen dituen zerbait dela dio Descartesek; emaitza "nabariak" eta "argi eta garbi egiazkoak" ematen dituen kognizio-**ahalmena** dela, alegia. Askoren artean

Pertzepziozko eskemen existentzian oinarritzen da ikuslearen pertzepzio-**ahalmen** hau. Josu Zabaleta

Irudiak adierazpen modu global bat, iradokizun-**ahalmen** handikoa, jartzen du idatzizko formaren ordez. Josu Zabaleta

Kanpoko sentsua irudikatu baino ez egiteak irudimenak determinatzen duen begiespen-**ahalmen** bera deuseztatuko luke. Ibon Uribarri

Hortik dator truke librearen eta nazioarteko espezializazioaren garrantzia, horiei esker nazio bakoitzak hobeto ustiatu ahal izango baitu bere ekoizpen-**ahalmena**. Koro Navarro

Ekonomia horien hazkunde-**ahalmenean** petrolioak izan dezakeen eragina, ordea, ez da oso argia. Koro Navarro

Gero eta konkurrentzia-**ahalmen** gutxiago duten merkatu-egituren aldeko bilakaeraren hipotesia sortzen du. Koro Navarro

Sona handikoak izan dira ekonomilarien izen onaren kalterako beren aurreikuspen **ahalmenari** buruz egin izan diren zenbait saio. Iñaki Heras

Hara, AEBetako Erreserba Federalaren lehendakari ahalguztidun Alan Greenspan-ek prentsaurreko batean azaldutako oratoria **ahalmenaren** pieza bitxia. Iñaki Heras

Egintza esatean, ez dut nik ulertzen, adibidez, zurginaren edo errementariarengan aurkitzen den "arte-**ahalmena"**, horiek "nolakotasuna"ren espezieari dagozkiolako, esana dugunez. Xabier Kintana

Zerutik baieztatua izan zen jainko-**ahalmenaren** mirarien bidez. Askoren artean

Sugea ere giza **ahalmen** bat da, irudimena, gizakiaren atal inportantea, baina deabruaren ekintzarako oinarri izan daitekeena. Xabier Kintana

Izan ere transnazionalek, beren erabaki **ahalmenaren** bidez, estatuen araudiei muzin egiteko gero eta aukera handiagoa dute. Iñaki Heras

Maizenik, ordea, poliki-poliki hedatzen diren ideia okerrek [...] aurrera egiten dute oso erraz, erabakitze **ahalmena** duten talde indartsuen interesen aldeko direlako sarritan. Iñaki Heras

Testigantza goi-**ahalmenentzat** ere: arrazoiarentzat, borondatearentzat, maitasunarentzat. Joan Mari Lekuona

Lehenik, bere baitan bildu behar du, arima-zolara itzuli, bihotza jaso, bere goi-**ahalmenak** aurkitu, Jainkoaren presentzia barruan kontenplatu. Joan Mari Lekuona

6 *ahalmen elektriko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Potentzia elektrikoa edo **ahalmen elektrikoa** zirkuitu elektriko baten energia elektrikoaren transferentzia abiadura da, hau da, elementu batek denbora tarte baten sortu edo xahutzen duen energia elektriko kopurua. ETC-entziklopedia

7 *ahalmen pasibo* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Orobat, beren objektua motorea mugikorrarekin bezala konparatzen duten ahalmen guztiak **ahalmen pasiboak** dira, eta beren ekintza jasatea da, hautemangarriak sentimena mugitzen duen legez. ETC-literatura, saiakera

8 *ahalmen termiko* *(corpusean ez dago; ETCn 11 agerraldi)*

Gorputz baten bero-ahalmena edo **ahalmen termikoa** gorputz zein sistema batera transferitutako bero energia kantitatearen eta honek jasaten duen tenperatura aldaketaren arteko kozientea da. ETC-entziklopedia

9 *bero ahalmen* *(corpusean ez dago; ETCn 362 agerraldi)*

Gorputz baten **bero-ahalmena** edo ahalmen termikoa gorputz zein sistema batera transferitutako bero energia kantitatearen eta honek jasaten duen tenperatura aldaketaren arteko kozientea da. ETC-entziklopedia

Esate baterako, igerileku olinpiko baten uraren **bero-ahalmena** edalontzi baten urarena baino handiagoa izango da. Oro har, **bero-ahalmena** tenperatura eta presioaren araberakoa da. ETC-entziklopedia

Bestalde, etanolak gasolinak baino **bero-ahalmen** txikiagoa du, eta bion kantitate bera erretzean, etanolaren etekina %37 txikiagoa izango da gasolinarenarekin konparatuta. ETC-literatura, saiakera

Funtsean, lehen alternatibaren oinarria da hiri hondakinak aurre-tratamendu mekaniko-biologiko planta batean -edo bitan- kudeatzea, eta horren osagarri izatea errausteko planta bat, baina soilik **bero-ahalmen** handiko hondakinak erretzeko. ETC-prentsa

Izan ere, **bero-ahalmena** galtzen dute egunez egun, etxeetan hobeto banatzen ditugulako. ETC-prentsa

Fenomeno hori ez da hain zirraragarria, ordea, jakinez gero egur lehorrak oso **bero-ahalmen** txikia duela eta beroaren eroankortasun oso apala, ez baita hain gauza ezaguna, nonbait. ETC-zientzia, zuzenbidea

Era berean, karbono-portzentajea eta **bero-ahalmena** handitu egiten dira, eta osagai lurrunkorren edukia txikiagotu egiten da antrazitara iritsi arte; antrazita arroka metamorfikotzat hartzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hariaren materialak **bero-ahalmen** konstantea badu, hariko energia-galeraren erritmoa tenperatura-aldaketaren erritmoarekiko proportzionala izango da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ur molekulen arteko hidrogeno-zubi ugarien ondorioz, urak **bero-ahalmen** espezifiko eta lurruntze-bero sor handiak ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Petrolioa kalitatezko **bero-ahalmena** duen gasaren gabezia betetzeko ere erabiltzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Urarentzat lortutako datu esperimentalak eta informazio bibliografikoa konbinatuz, tresneriaren **bero-ahalmena** kalkulatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *berotze ahalmen* *(corpusean ez dago; ETCn 41 agerraldi)*

Gainera, hondakin batzuen **berotze ahalmena** oso baxua eta irregularra denez, erraustegiaren efizientzia ere baxua izango da. ETC-prentsa

Baina hondakinen **berotze ahalmena** ez da petrolioaren erdira iristen, beraz, tona kopuru bikoitza beharko du. ETC-prentsa

Organiko bustiak **berotze ahalmena** kentzen dio zaborrari: paperak ondo erretzen dira, plastikoek bero handia ematen dute, zapi eta oihalek ere bai, baina organikoa hezea da. ETC-prentsa

Hala, suaren **berotze ahalmena** gutxitu egiten da, eta sua itzaltzeko lanak eraginkorragoak dira. ETC-prentsa

Erregaitzat erabiltzen da gehienbat, nahiz eta petrolioa baino **berotze-ahalmen** txikiagoa eduki; gainera, karbono dioxido gutxiago aireratzen du erretzean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aktinometroak erradiazio elektromagnetikoaren ahalmen termiko edo **berotze-ahalmena** neurtzeko erabiltzen diren tresnak dira. ETC-entziklopedia

Ziklo hidrologikoaren osagaia izateaz gain, ebapotranspirazioak **berotze-ahalmenean** eta energiaren antolakuntzan eragina du uraren egoeraren aldaketa dela eta, jasotako eta igorritako energia kopuruan oreka lortzen delako. ETC-entziklopedia

11 *ekoizteko ahalmen*

Gaur egun biltegi bat dugu, eta **ekoizteko ahalmena** asko gutxitu da. Berria - Ekonomia

Prezioa "erotu egin den arren» gehiago **ekoizteko ahalmenik** ez duela onartu du 'cartel'-ak. Berria - Ekonomia

Datu horiek, berez, zientzia eta goi mailako teknologia **ekoizteko ahalmenaren** adierazle ezin hobeak dira, baina ez digute esaten zein izan den Koreako garapenean izan duten eragina. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gainerakoari doakionez, gauza bat "**ekoizteko" ahalmenaz** beste ezaguera intelektualik ez dugunez, bera zuzenki eginez ez bada, Jainkoa "egile" gisa aurkeztu izan da. Xabier Kintana

Gizartearen aurrerakuntza zuzenean eta soilik ondasun materialak **ekoizteko ahalmenarekin** erlazionaturik dagoela pentsatzea akats handia da. Iñaki Heras

12 *eros ahalmen* *(ETCn 305 agerraldi; orobat **erosahalmen**)* erosteko ahalmena.

Langileak **eros ahalmena** galtzen ari direla azpimarratu zuen. iaz prezioak uste baino %0,8 gehiago igo zirenez, galdutako **eros ahalmena** ordainketa bakarrean konpentsatuko du hurrengo egunotan Madrilgo gobernuak. Berria - Ekonomia

LABek soldaten **eros ahalmenaren** hobekuntza defendituko du negoziazio kolektiboan. Berria - Ekonomia

Erretiro pentsiodunek gaur berreskuratuko dute iaz galdutako **eros-ahalmena**. Berria - Ekonomia

Bestetik, agente ekonomikoei ere seinale bat igortzen die, inflazioa handitzea ez duela onartuko adieraziz eta, beraz, euroa **eros ahalmena** babesteko txanpon egonkorra dela agertuz. Berria - Harian

Deitoratuz ere lanpostu galtzeak eta **eros-ahalmenaren** ttipitzea. Herria

13 *eroste ahalmen* *(ETCn 51 agerraldi)* erosteko ahalmena.

Bizi-kalitateak, ordea, **eroste ahalmenaren** alderdi kuantitatiboaz gain, gizarte bateko norbanakoen harreman esparrua osatzen duten gizarte, ekologi eta, besteak beste, kultur alderdiak jasotzen ditu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gure **eroste-ahalmena** areagotuko da etorkizun hurbilean ere. Edorta Agirre

14 *erosteko ahalmen* *(ETCn 1.102 agerraldi)* erosteko ahalmena.

Dena den, argi utzi behar da bizi maila ez dagoela zertan **erosteko ahalmenarekin** lotu. Berria - Gaiak

Herri Urratseko kamiseta ugariez gain, **erosteko ahalmen** finkatua zuten jendeei "oparitzeko". Itxaro Borda

Familia eta jende haietako askok **erosteko ahalmen** handia zuten, eta azterketa polita egin liteke haiek sortutako negozio, enpresa eta zerbitzuei buruz. Askoren artean

Behialako garai batean nire **erosteko ahalmena** zuhurki administratzen zekien erosle irizpideduna nintzela amestu banuen ere, orain dena zen diferente, eta makina bat galderak galarazten zidaten loa: hiru edo lau erreprodukzio-buru? Jon Alonso

Bizi-mailak **erosteko ahalmena** islatzen digu, haztapen kuantitatiboa da beraz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Geroz eta elikagai pertsonalizatu gehiago eta zehatzagoak (tamainak, itxurak, ukituak, aurkezpenak, aditiboak, usainak, ontziak...) izango ditugu eskura, **erosteko ahalmena** gora joan ahala. Edorta Agirre

Gauza etengabe nahasten da, ordea, kontratu horien gainean kontratuak **erosteko ahalmena** baitago, eta era berean, kontratu berri horien gainean beste kontratu batzuk egitekoa. Iñaki Heras

"**Erosteko ahalmen** handiko eta enpresa handietako bezeroek», adierazi zuen. Berria - Ekonomia

Adegik hiru urterako hitzarmena proposatu du (2004-2006) KPIren hazkuntzaren soldata igoera baliokidearekin, "langileen **erosteko ahalmena** ez murrizteko». Berria - Ekonomia

Jaurlaritzaren eskaintza ekonomikoa "ez da nahikoa inolaz ere, eta ez du **erosteko ahalmena** berreskuratzeko aukerarik ematen». Berria - Ekonomia

15 *goi ahalmen*

Goi-ahalmenetan, bereziki arrazonamenduan. Joan Mari Lekuona

Bihotza jaso, bere **goi**-ahalmenak aurkitu, Jainkoaren presentzia barruan kontenplatu. Logika orokorra ezagutzaren **goi**-ahalmenen sailkaketarekin zuzenki bat datorren plan baten gainean eraikitzen da. Ibon Uribarri

Bada beste testigantza bat **goi**-ahalmenetan, borondatean, maitasunean dagoena. Joan Mari Lekuona

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahalmen bat (31); **ahalmen bera** (6); **ahalmen berezia** (6); **ahalmen edo** (8); **ahalmen ekonomikoa** (7); **ahalmen eta** (40); **ahalmen gehiago** (7); **ahalmen gisa** (8); **ahalmen gutxiago** (5); **ahalmen guztia** (18); **ahalmen guztiak** (21); **ahalmen handia** (34); **ahalmen handia du** (6); **ahalmen handiagoa** (27); **ahalmen handiz** (26); **ahalmen handiz atera** (7); **ahalmen handiz eta** (9); **ahalmen harrigarria** (7); **ahalmen hau** (12); **ahalmen hauek** (5); **ahalmen hori** (65); **ahalmen horiek** (14); **ahalmen horien** (5); **ahalmen horrek** (11); **ahalmen horren** (5); **ahalmen hurriko** (26); **ahalmen hurriko haurrak** (7); **ahalmen hurriko haurren** (8); **ahalmen izugarria** (12); **ahalmen militarra** (6); **ahalmen miragarria** (5); **ahalmen mugatua** (5); **ahalmen nuklearra** (7); **ahalmen oro** (10); **ahalmen osoa** (15); **ahalmen txikia** (5); **ahalmen urriko** (32); **ahalmen urriko haurrak** (6); **ahalmen urriko haurren** (9); **arrazoimenaren ahalmen** (5); **baina ahalmen** (6); **baino ahalmen** (11); **baino ahalmen handiagoa** (6); **bere ahalmen** (42); **beste ahalmen** (8); **da ahalmen** (5); **den ahalmen** (7); **du ahalmen** (8); **duen ahalmen** (21); **duten ahalmen** (12); **egiteko ahalmen** (11); **eta ahalmen** (62); **gero eta ahalmen** (5); **gure ahalmen** (13); **hain ahalmen** (6); **halako ahalmen** (6); **hartzeko ahalmen** (5); **indar eta ahalmen** (6); **jainkoaren ahalmen** (6); **nire ahalmen** (7); **pentsatzeko ahalmen** (5); **sortzeko ahalmen** (5); **zer ahalmen** (6); **zeure ahalmen** (7); **zuen ahalmen** (6)

adierazteko ahalmena (5); **ahalmena baduela** (8); **ahalmena baino** (7); **ahalmena da** (22); **ahalmena dauka** (6); **ahalmena du** (22); **ahalmena duela** (13); **ahalmena duen** (19); **ahalmena duena** (5); **ahalmena dute** (20); **ahalmena dutela** (13); **ahalmena duten** (9); **ahalmena edo** (11); **ahalmena eman** (41); **ahalmena eman zien** (9); **ahalmena eman zion** (8); **ahalmena emango** (7); **ahalmena ematea** (5); **ahalmena ematen** (23); **ahalmena erakutsi** (5); **ahalmena ere** (27); **ahalmena eta** (61); **ahalmena ez** (28); **ahalmena galdu** (15); **ahalmena handitu** (5); **ahalmena handitzen** (15); **ahalmena handitzen edo** (14); **ahalmena izan** (23); **ahalmena izan behar** (7); **ahalmena izango** (20); **ahalmena izango du** (6); **ahalmena izatea** (12); **ahalmena izateko** (5); **ahalmena murrizten** (5); **ahalmena murriztu** (6); **ahalmena tipitzen** (6); **ahalmena tipitzen edo** (6); **ahalmena zuen** (7); **ahalmena zuten** (5); **aritzeko ahalmena** (5); **aukeratzeko ahalmena** (10); **barkatzeko ahalmena** (5); **baten ahalmena** (12); **bere ahalmena** (18); **bere iharduteko ahalmena** (11); **beren ahalmena** (5); **bihurtzeko ahalmena** (5); **dena ezagutzeko ahalmena** (5); **dibortziorako ahalmena** (5); **duen ahalmena** (33); **duten ahalmena** (20); **edo ahalmena** (12); **egiteko ahalmena** (71); **egiteko ahalmena eman** (5); **ekoizpen ahalmena** (15); **emateko ahalmena** (9); **epaitzeko ahalmena** (5); **erabaki ahalmena** (18); **erabakitzeko ahalmena** (46); **erakartzeko ahalmena** (5); **eramateko ahalmena** (6); **eros ahalmena** (7); **erosketa ahalmena** (6); **erosteko ahalmena** (36); **eta ahalmena** (31); **ezagutzeko ahalmena** (16); **ezagutzeko ahalmena ematen** (5); **garatzeko ahalmena** (7); **gizakiaren ahalmena** (5); **gogoratzeko ahalmena** (6); **gorputzaren ahalmena** (5); **gorputzaren iharduteko ahalmena** (10); **gure ahalmena** (6); **gure iharduteko ahalmena** (7); **haren ahalmena** (16); **haren iharduteko ahalmena** (12); **hartzeko ahalmena** (10); **hitz egiteko ahalmena** (6); **horretarako ahalmena** (7); **iharduteko ahalmena** (49); **iharduteko ahalmena handitzen** (12); **iharduteko ahalmena tipitzen** (6); **ikusteko ahalmena** (11); **indarra eta ahalmena** (7); **izateko ahalmena** (11); **izpirituaren ahalmena** (5); **izpirituaren pentsatzeko ahalmena** (6); **jainkoaren ahalmena** (23); **jarduteko ahalmena** (5); **menperatzeko ahalmena** (7); **mugitzeko ahalmena** (8); **nire ahalmena** (6); **pentsatzeko ahalmena** (19); **sendatzeko ahalmena** (5); **sortzeko ahalmena** (17); **suntsitzeko ahalmena** (6); **uzteko ahalmena** (5); **zeure ahalmena** (6); **zigortzeko ahalmena** (5); **zuen ahalmena** (6); **zure ahalmena** (5)

ahalmenak baino (6); **ahalmenak eta** (11); **ahalmenaren arabera** (19); **ahalmenaren araberakoa** (7); **ahalmenari dagokionez** (5); **ahalmenari esker** (5); **ahalmenaz eta** (6); **ahalmenetik kanpo** (7); **ahalmenik edo** (5); **ahalmenik ez** (43); **ahalmenik ez duela** (5); **ahalmenik ez duen** (5); **ahalmenik gabe** (25); **ahalmenik izango** (5); **aurre egiteko ahalmenik** (5); **baten ahalmenak** (7); **bere ahalmenak** (10); **bere ahalmenaren** (8); **bere ahalmenaz** (15); **bere ahalmenen** (7); **du ahalmenik** (7); **duen ahalmenak** (5); **duen ahalmenaren** (9); **duen ahalmenaz** (5); **egiteko ahalmenik** (15); **erabaki ahalmenik** (6); **erabakitzeko ahalmenik** (5); **eros ahalmenaren** (6); **eta ahalmenak** (9); **eta ahalmenaren** (5); **eta ahalmenaz** (7); **eta ahalmenen** (7); **eta ahalmenik** (5); **ez du ahalmenik** (7); **haren ahalmenak** (7); **hartzeko ahalmenik** (6); **jainkoaren ahalmenaz** (5); **zeure ahalmenaz** (9)

---

ahalmen[2] *iz* aingeruen sailkapeneko maila baten izena.

Eta ama ospetsu eta beti Birjina Maria txit dohatsuari; Mikel, Gabriel eta Rafael dohatsuei eta espiritu dohatsuen talde guztiei: serafin, kerubin, **ahalmen**, nagusi, aginte, botere, indar, aingeru eta goiaingeruei. Askoren artean

---

ahalmendu, ahalmen(du), ahalmentzen du *ad* ahamendun bihurtu.

Nazio historiagin bat zerk, zein elementuk, betegiten du eta **ahalmentzen** du historiko-sozialki? Joxe Azurmendi

---

ahalmengabe *izond* ahalmenik ez duena.

Eta modu **ahalmengabe** eta lausoan izango zara zure sorterriaren ordezkaria hor ere, atzerriko azkenportu horretan, ordurako zure herriak ahaztuta izango zaituelako, edota zeuk ere zeure herria zer den ia atzenduta izango duzulako. Joseba Sarrionandia

---

ahalmentsu 1 *izond* ahalmenez betea.

Talde **ahalmentsua** da eta ona; onek soilik irabaz dezakete Grand Slama. Berria - Kirola

Gehienek dakite zer izan daitekeen La Fura dels Bausen ikuskizun **ahalmentsu** bat, eta ikusle batzuk gu geu tartean taldearen hastapen mitiko haietan izandako sentsazioak berreskuratzeko murgildu gara sotoko iluntasunean. Berria - Kultura

Ingelesak oso borrokalari ari dira, eta, baloiari eusten eta jokaldiak amaitzen **ahalmentsuak** dira. Berria - Kirola

Italiarrek oso talde indartsua dute, eta bizpahiru jokalaririk onenak gabe jokatu bazuten ere, aitzinean **ahalmentsuak** dira. Berria - Kirola

Uste dut, hala ere, aurtengo taldea iazkoa baino **ahalmentsuagoa** dela. Berria - Kirola

Eskoziak mendean hartu ditu Europako bi selekziorik **ahalmentsuenak** hiru asteren buruan: Frantzia eta Ingalaterra. Berria - Kirola

Egoeraren aurrean konpainiarik **ahalmentsuenek** antzezle batzuek euskarazko produktura eta beste batzuek erdarazkora bideratzen dituzte, arestian esan dudan arazoa konpontze aldera, nahiz eta horrek kostu bikoitza dakarren ekoizpenaren aldetik. Berria - Kultura

Askotan badirudi dantzariak eta koreografia bera apaingarri soila baino ez direla proiekzioen eta soinu-banda **ahalmentsuaren** aurrean. Berria - Kultura

"XML erreminta **ahalmentsuagoa** eta konplexuagoa da", Xabier Arregiren esanetan. Berria - Euskal Herria

2 (adizlagun gisa)

Lehen bezain **ahalmentsu** jarraitzen du baloiak bereganatzen, eusten eta jokatzen. Berria - Kirola

Abadiño **ahalmentsu** iraupenean. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

ahalmentsua da (3); **ahalmentsuak dira** (5)

ahalño *iz ipar ipar* ahal txikia.

Aurten, 2001 garren urtea "Europako mintzairen urtea" izanik, apalki galdatuko nakoten, herri zibilizatua girenaz geroz, **ahalño** bat egin dezaten eta hemendik aintzina elebidun izan diten bederen. Herria

---

ahalorde 1 *iz* norbaitek beste norbaiti bere ordez aritzeko ematen dion ahalmena; ahalmen hori adierazten duen agiria.

Beharrezko gestio guztiak egiteko **ahalordea** eman zion, notario aurrean, bere lanaren erreplikak edo handitzeak egiteko, betiere bere oniritziarekin. Berria - Kultura

Kudeaketa gaitasun guztiak ematen zizkion **ahalordea** eman zion Carlosi eta munduan barrena abiatu zen, noiz abiatu bazekiela baina itzulera jainkoaren eskuetan zegoela esanez jende guztiari. Bego Montorio

Oporraldian ere **ahalorde** orokor bat utzi zion, legez onartutako botererik zabalenekin. Bego Montorio

Barkatu, osaba, baina **ahalordea** iraungi egin da eta lurreratutako salgaiak galtzeko arriskuan gaude, sinatu hemen, mesedez. ordu erdi darama nire zain Goldstein anaien **ahalordedunak**... Bego Montorio

2 *ahalorde emaile* *(corpusean ez dago; ETCn 78 agerraldi)*

Dena den, **ahalorde-emaileak** ahalorde orokorretik gaiak eta jarduna baztertu ahal izango ditu, legearen aginduz horietarako ahalorde berezia ematea behar ez denean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ahalorde bidezko ezkontzaren inskripzioan adieraziko da zein den **ahalorde-emailea**, ahaldunaren nortasun-aipamenak, eta ahalordearen data eta eskueslea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Auzietarako ahalorde orokorraren bidez, prokuradoreak ahalmena izango du, **ahalorde-emailearen** izenean, auzien izapidetzan ohi diren prozesuko egintza guztiak baliozkotasunez egiteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Komisarioak onartzen badu, inbentarioa egin beharko du **ahalorde-emaileak** testamentu-ahalorde horretan beren-beregi ezarritakoarekin bat etorriz, eta ezin izango du inola ere ahalorde hori aldarazi. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *ahalorde notarial* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Euskal Herriari nork emon zion **ahalorde notarial** bat? Superstizioa herri emozio atenporal bat da. ETC-prentsa

4 *ahalordea eman*

Jorge Oteizak, gainera, beharrezko gestio guztiak egiteko **ahalordea eman** zion, notario aurrean, bere lanaren erreplikak edo handitzeak egiteko. Berria - Kultura

Horrela, kudeaketa gaitasun guztiak ematen zizkion **ahalordea eman** zion Carlosi eta munduan barrena abiatu zen, noiz abiatu bazekiela baina itzulera jainkoaren eskuetan zegoela esanez jende guztiari. Bego Montorio

5 *notario-ahalorde* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Prokuradoreari emandako **notario-ahalordea**, prokuradoreak auzian parte hartzen badu eta ordezkaritza apud acta egilesten ez bada. ETC-zientzia, zuzenbidea

Paper horien artean agiri konprometigarriren bat egon izan balitz (**notario-ahalorde** bat, edo horrelako zerbait), hartu beharreko neke guztiak hartuko zituen hark, agiri hura beste ezer baino lehen suntsiturik gera zedin ziurtatzeko. ETC-literatura, saiakera

---

ahalordedun *iz* ahalordea duen pertsona.

Ordu erdi darama nire zain Goldstein anaien **ahalordedunak**... Laneko elkarrizketa da, Neuhäusl jauna, zatoz nahi baduzu, bezeroak nola tratatu ikasteko. Anton Garikano

---

ahalorotako *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)* *iz* ahalguztiduna.

Sumatzen ditudanean, bihotzetik hurbilago, belar izpien arteko mundu txiki horren ziri-zara, marmutx eta eltxoen ezin konta ahalako, ezin konprenituzko formak, eta **Ahalorotakoa** ere hor sumatzen dudanean, bere irudira sortu gintuena, eta haren Oro-maitasunaren arnasa sentitzen, atergabeko pozean hegan garabiltzana. ETC-literatura, saiakera

---

ahalpean *(corpusean ez dago; ETCn 35 agerraldi)* *adlag* ahal edo botere baten mendean, eskuarki guraso-ahalari aplikatuta.

Norbaitek, buru-nahasketa dela eta, ezin badu bere kabuz barneratzea erabaki, bera barneratzeko epailearen baimena behar da, pertsona hori guraso **ahalpean** edo tutoretzapean egon arren. ETC-zientzia, zuzenbidea

20. artikuluaren 1 eta 3. zenbakien kasuetan, zigor-erantzukizunetik salbuetsita daudenak norbaiten **ahalpean** edota legezko nahiz egitezko zaintzapean badaude, orduan, ahal edo zaintzaren ardura duenak ere erantzukizuna izango du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kode Zibilaren 154 artikuluak dio emantzipatu gabeko adingabeak guraso-**ahalpean** daudela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Seme-alabek, bestalde, gurasoen esanak egin behar dituzte, horien **ahalpean** dauden bitartean; haiek errespetatu behar dituzte beti, eta familia mantentzen lagundu behar dute horrekin bizi diren bitartean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Seme-alaba emantzipatugabeak euren gurasoen **ahalpean** daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

ahalpeko *(corpusean ez dago; ETCn 18 agerraldi)* *izlag* ahal edo botere baten mendekoa, eskuarki guraso-ahalari aplikatuta.

Guraso-**ahalpeko** seme-alabek, gurasoen ondasunen gain, bigarrenez ezkondu den gurasoak administratu edo gozatzen dituen ondasunengatik, horiek seme-alaben jabetzapekoak badira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi gurasoen **ahalpeko** seme-alaben zaintza eta zaintza hori egikaritzako modua zehaztu behar dira, eta, hala denean, seme-alabekin bizi ohi den ezkontideaz bestekoak zein araubide bete behar duen seme-alabokin mente con ellos. harremanak izan eta eurekin egoteko." ETC-zientzia, zuzenbidea

Zordunaren hileten ondorioz, tokiko usadioen arabera, bai eta zordun horren ezkontidearen eta guraso-**ahalpeko** seme-alaben hiletagastuen ondorioz ere, horiek ez badute berezko ondasunik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, guraso-**ahalpeko** seme-alaben ondasun eta eskubideekin transigitzeko, beroriek besterentzeko erregela berberak aplikatuko dira. ETC-entziklopedia

---

ahaltasun *iz* ahalmena.

Errege haien **ahaltasuna** hazi egin zen haiek menderatu eta gero. Iñaki Iñurrieta

Ez da goizegi gure haurrek izan diten bertze herri guzietan bezala euskara ikasteko, irakurtzeko eta idazteko **ahaltasuna**. Herria

Hurrengo belaunaldian erabiltzeko ikertzen ari diren ordenagailuak, Interneten, segundo bakoitzean, 30 bilioi eragiketa egiteko **ahaltasunean** pentsatzen ari dira. Pello Salaburu

Duela hogei urte iratzarriak ditu marrazkirako dituen jeinu eta **ahaltasunak**. Herria

Erakutsi da aukeraketa estrategikoak ez direla zuzenean sortzen mundu ikuskera batetik edo berez subjektu hiztun jakin bati legozkiokeen interes batzuen gailentasunetik;

baina euren **ahaltasuna** bera kontzeptuen jokoen baitako dibergentzia-puntuek mugatzen dute. Xabier Arregi

Literatura da gizakiari kantua edo negarra eragiteko maitasunak duen **ahaltasunaren** lekukoa. Ramon Saizarbitoria

Izan ere, seduzitzeko **ahaltasunaren** kontzientziarik gabe ezinezkoa baita idaztea. Ramon Saizarbitoria

Aitortzen dizut sinetsita nagoela idatzi dudan dozena bat lerrok emakume bati konortea galarazteko **ahaltasuna** izan. Ramon Saizarbitoria

Esango bailitzateke haien hurbiltasun misteriozkoa pairatzen dugun ezagutu ezinezko **ahaltasunez** bete-betea dagoela airea, aire ikusezina. Josu Zabaleta

Etsi-etsita jarraitzen nuen sinesten Eugeniak literarioki baliotsua iruditzen zitzaion testu hura idazteko gai izan nintzelako onartu zuen nirekin oheratzea, hau da, nire **ahaltasun** literarioak erakarri zuela, eta ez nuen ikusten, ona nahiz txarra, edozein testuk izango zukeela eragin bera, nik idatzia eta, batez ere, berarentzat idatzia izanik. Ramon Saizarbitoria

Esandako gauzak baldin badaude -eta bakarrik hauek- euren arrazoi zuzena ez da bilatu behar esandako gauzetan edo eurak esan dituzten gizon-emakumeengan, baizik eta diskurtsibotasun-sisteman, berak gertatzen duen **ahaltasun** edo ezintasun enuntziatiboetan. Xabier Arregi

---

ahaltsu 1 *izond* ahalez betea.

Behera zaitezte, bada, eta jarri Jainko **ahaltsuaren** eskumendean, bere garaian gora zaitzaten. Elizen arteko biblia

Jauna, zuen Jainkoa, jainkoen Jainko eta jaunen Jaun baita, Jainko handi, **ahaltsu** eta beldurgarria. Elizen arteko biblia

Errege **ahaltsu** zara, justiziazale: zuk ezarri duzu zuzenbidea munduan, zuk egiten justizia eta zuzenbidea Israelen. Elizen arteko biblia

Hilen artetik piztu zenez gero, santu egiten duen Espirituaz Jainkoaren Seme **ahaltsu** egina izan da. Elizen arteko biblia

Maite dutenengan ditu Jaunak jarrita begiak; bera da babesle **ahaltsu**, euskarri sendo. Elizen arteko biblia

Eta aingeru **ahaltsu** bat ikusi nuen, ahots handiz hots egiten: [...]. Elizen arteko biblia

Egipton herri handi, **ahaltsu** eta jendetsu bihurtu zen. Elizen arteko biblia

Jende **ahaltsu** asko deserriratu du eta atzerrian nora-ezean ibiltzera behartu. Elizen arteko biblia

Hara, neureak ditut erreinu **ahaltsu** eta aberats guztiok eta nahi dudanari eman diezazkioket. Elizen arteko biblia

Ai zu, ai hiri handia, Babilonia, hiri **ahaltsua**! Elizen arteko biblia

Hango eta hemengo handikiekin eta merkatari **ahaltsuekin** solastu eta haiei geure asmoak erakutsi. Joan Mari Irigoien

-Oso azti **ahaltsuren** bat izan beharko zuen, dementor haiek guztiak uxatzeko... Iñaki Mendiguren

Hermionek kontuz ireki zuen *Edaberik* ***Ahaltsuenak*** liburua eta hezetasunez orbanduriko orrialdeen gainera makurtu ziren hirurak. Iñaki Mendiguren

Erakutsi zeure indarra eta esku **ahaltsua**. Elizen arteko biblia

Apostolu naizela adierazten duten seinaleak, zuen artean eramanpen handiz burutu nuen lanean agertu ziren argi: mirariak eta egintza **ahaltsu** eta harrigarriak. Elizen arteko biblia

Ikuspegi bat ematen dute zein egintza **ahaltsuak** diren gizarte-desintegrazioaren albo-produktuak. Iñaki Mendiguren

Belaunaldi batek besteari zure egintzak goraipatzen dizkio, zure egite **ahaltsuak** iragartzen. Elizen arteko biblia

Jaunaren izen **ahaltsua** iragarriko dute Sionen, haren gorespena Jerusalemen. Elizen arteko biblia

Sendo zaitzatela Jaunak bere indar **ahaltsuaz**. Elizen arteko biblia

Gertu daukazu uztaia, prestaturik gezi **ahaltsuak**. Elizen arteko biblia

Komunikazio teoriako hizkuntz-eredu erabat soil batek, eta gaur egun "zuzeneko osagia-analisia" deitu ohi dena biltzen duen eredu **ahaltsuago** batek, ezin dute egokiro bete gramatika-deskribapenaren eginbeharra. Itziar Laka

Baina (26) erregelak lanabes **ahaltsuagoa** eskatzen du, eratorpenean "egindako urratsetara" begira dezakeena, aurreko kateetara, eratorpenaren hurrengo urratsa nola egin erabakitzeko. Itziar Laka

Obra handi ikusgarrietatik dena dezakeen nanoteknologia deritzanak sortu behar omen duen ezin ikusizko nanomundu **ahaltsura** igaro gara. Iñaki Segurola

Ahaltsu da Jauna, leialtasunez jantzia! Elizen arteko biblia

Nire ondoren dator ni baino **ahaltsuago** dena, eta ni ez naiz inor makurtu eta haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Elizen arteko biblia

Nork ukatuko du hauetariko inor guztiz **ahaltsua**, guztiz zuzena, guztiz ederra, guztiz ona eta guztiz zoriontsua dela? Imanol Unzurrunzaga

Ekialde Urruneko Zibilizazioa Txinan, Korean eta Japonian [...] Erdialdeko Amerikakoa inoiz izan zena baino askoz **ahaltsuagoa** zen. Iñaki Mendiguren

Zeren eta zure merkatariak lurreko **ahaltsuenak** baitziren, eta zeure sorginkeriez herri guztiak engainatu baitituzu. Elizen arteko biblia

Hizkuntza ikusteko molde hau guztiz **ahaltsua** eta orokorra da. Itziar Laka

Borroka gogorrean garaipena eman zion, jainkozaletasuna beste ezer baino **ahaltsuagoa** dela jakin zezan. Elizen arteko biblia

Luma ezpata baino **ahaltsuagoa** dela esaten digun maxima biribila Administrazio inperialaren makina **ahaltsua**. Iñaki Mendiguren

Inongo erregek, handiena eta **ahaltsuena** izanik ere, ez dio inoiz antzeko gauzarik eskatu igarle edo azti bati. Elizen arteko biblia

2 (izen gisa)

Honen argitan nahiago ditugu bizidunak bizigabeak baino, sentiberak sentitzen ez dutenak baino, adimendunak irrazionalak baino, betikoak hilkorrak baino, **ahaltsuak** ezinduak baino. Imanol Unzurrunzaga

Ohoratuak izaten dira handikiak, gobernariak eta **ahaltsuak**, baina horietako inor ez da Jaunari begirune diona baino handiago. Elizen arteko biblia

Halako moldez izan dira ordenatuak non ahulagoak indartsuagoen mendean jartzen diren, bigunagoak gogorragoen mendean, makalagoak **ahaltsuagoen** mendean. Imanol Unzurrunzaga

Begira bestela, senideok, zeintzuk zareten Jainkoak deitu zaituztenok: ez dira zuen artean munduak jakintsutzat hartzen dituenetatik asko, ez eta **ahaltsu** nahiz aitoren semeetatik ere. Elizen arteko biblia

Ez zaitez kikildu zentzugabearen aurrean, ez makurtu **ahaltsuaren** menpera. Elizen arteko biblia

Jainkoaren barren-barrena ikertu nahi al duzu eta **Ahaltsuaren** handitasuna besarkatu? Elizen arteko biblia

Hona hemen estasian, begiak zabal-zabal, Jainkoaren hitza entzun eta **Ahaltsuaren** agerpenak dituenaren mezua. Elizen arteko biblia

Ahaltsuren batek dei egindakoan, ez joan arinegi, are gehiago dei egingo dizu eta. Elizen arteko biblia

Neure laguntzaz **ahaltsu** egiten zaitut, neure esku garaileaz eusten dizut. Elizen arteko biblia

Jainkoak bere indarrez jotzen ditu **ahaltsuak**; hark ekitean, ez dute bizirik iraungo. Elizen arteko biblia

Nik bukaraziko dut **ahaltsuen** harrokeria eta profanatu egingo dituzte berorien santutegiak. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aberats eta ahaltsu (4); **ahaltsu bat** (17); **ahaltsu bat ikusi** (3); **ahaltsu batek** (7); **ahaltsu baten** (5); **ahaltsu bezala** (4); **ahaltsu egin** (3); **ahaltsu eta** (24); **ahaltsu eta beldurgarria** (3); **ahaltsu hori** (3); **ahaltsu horrek** (3); **ahaltsua baita** (4); **ahaltsua da** (12); **ahaltsua da jainkoa** (4); **ahaltsua eta** (6); **ahaltsua izan** (3); **ahaltsua izango** (3); **ahaltsua izango da** (3); **ahaltsuago den** (3); **ahaltsuago egin** (3); **ahaltsuago eta** (3); **ahaltsuagoa dela** (6); **ahaltsuagoa izan** (4); **ahaltsuagoa izan baitzinen** (3); **ahaltsuak dira** (3); **ahaltsuak ez** (4); **ahaltsuaren aurka** (4); **ahaltsuaren aurrean** (3); **ahaltsuen berri** (3); **ahaltsuena izan** (3); **ahaltsuenetako bat** (3); **aingeru ahaltsu** (5); **aingeru ahaltsu bat** (3); **baino ahaltsuago** (11); **baino ahaltsuagoa** (15); **baino ahaltsuagoa dela** (6); **baino ahaltsuagoak** (3); **deskribapena baino ahaltsuagoa** (3); **edaberik ahaltsuenak** (4); **egintza ahaltsuak** (3); **egintza ahaltsuen** (3); **egintza ahaltsuen berri** (3); **eredu ahaltsuago** (3); **errege ahaltsu** (7); **errege ahaltsuaren** (3); **esku ahaltsua** (3); **eta ahaltsu** (17); **eta ahaltsu bat** (4); **eta ahaltsua** (11); **eta ahaltsuago** (3); **eta ahaltsuagoa** (7); **eta ahaltsuagoa izan** (3); **eta ahaltsuak** (6); **eta ahaltsuaren** (5); **eta ahaltsuen** (3); **gizon ahaltsu** (5); **guztiz ahaltsua** (7); **handi eta ahaltsu** (3); **jainko ahaltsua** (8); **jainko ahaltsuak** (8); **jainko ahaltsuaren** (5); **jaun ahaltsu** (4); **jaun ahaltsuari** (3); **nobleagoa eta ahaltsuagoa** (3); **oso ahaltsua** (3); **oso ahaltsuak** (4); **zure egintza ahaltsuen** (3)

---

ahaltsutasun *iz* ahaltsua denaren nolakotasuna.

-Lehoietako deitu behar dio berorren **ahaltsutasunak** -Santxok-; itxura tristerik ez da gehiago; eta bedi Lehoietako itzalduna. Patxi Ezkiaga

---

ahamen 1 *iz* mokadua.

Ura edan eta **ahamen** bat jan duzue. Xabier Montoia

Zenbait aldiz gomitatzen ninduen bere adiskideekin **ahamen** baten jatera paketetan ukanetarik. Marzel Etxehandi

Zaindariek ez zieten **ahamenik** ere emaiten. Eneko Bidegain

Bi egun haietan ez zuten **ahamenik** jan, ez edan ere, eta berdin-berdin iragan zuten ondoko gaua. Elena Touyarou

Hiru **ahamen** aski izan nituen nik. Aingeru Epaltza

Kantaldiaren ondotik, ikusliar guziek ukanen dute **ahamen** baten eta baso erdi baten edateko parada, Abbadia jauregiko sukalde zabalean. Herria

Bi **ahamen** irentsi orduko, tapatua nintzen. Daniel Landart

Zeren oilaskoa **ahamen** ezin apetitosagoa izan baitaiteke egun batean, baita hurrengoan ere eta hurrengoan, baina beti zagok muga bat. Joan Mari Irigoien

Labezomorroek, lehenbiziko egunetan bederen, **ahamen** poxi bat iresteko gogoa kentzen zioten Joanesi. Eneko Bidegain

Irakurleak ikusiko duenez, han-hemenka eman ditzakedan iritziez gain, tartean datuak ageri dira, **ahamen** gisa emandako datu asko batzuetan, iturriak ia-ia inoiz ere aipatu gabe. Pello Salaburu

Egunean premiazkoa genuen kaloria kopurua sabeleratuko genuen **ahamen** bakarraz. Itxaro Borda

Hartan ere, **ahamen** gutiziatuena, hasteko: erretiluan eper bat. Patziku Perurena

Bakoitzarentzat **ahamen** ttipi bat baizik ez zen gelditzen. Eneko Bidegain

Gaua ez duk erabat bukatu oraindik, basoan gauzak gertatzen dituk, basapiztien zelata-aldia bukatu gabea duk: basakatua zelatan zegok oraindik, harrapakinaren azken **ahamena** jaten ari duk hartza, oreina ilargipeko azken une grinatsuez oroitzen duk, larrearen erdian gelditzen duk, amodiozko borrokaren lekuan. Xabier Olarra

Zelula hartzaileak estimulatzeko eta garunerako mezua sortzeko, askoz energia gehiago lortzen da janari **ahamen** batetik, urrutiko soinu, ikuspen edo usain-bafada batetik baino. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahamen bat** (6); **ahamen baten** (5)

---

ahantxu ik **abantxu**.

---

ahantzarazi, ahantzaraz(i), ahantzarazten *(orobat **ahaztarazi** eta **ahanztarazi** g.er.)* **1** du *ad* ahanztera behartu.

Gertatuak jin arau, egungo berriak **ahantzarazi** egiten du bezperakoa. Berria - Kultura

Batean Otsagiko dantzen doinuak, bertzean Larrain dantzak, zeru gris eta hotza **ahantzaraz** dezakete. Berria - Euskal Herria

Nork bada **ahantzarazi**, Aulki Sainduko gure Aita Sainduak Jainkoari egin hainbeste otoitzez eta esker onez bestalde, diruz eta soldaduz eman laguntzak? Piarres Xarriton

Badakigu engoitik gure inguruko ordena eta legezko estatutu guztiak odolean sortuak direla, gero beraiek hori **ahantzarazi** nahi badigute ere. Piarres Xarriton

Esan ezazu, eguneroko bizimoduan aurkitzen zenituen gertaera txiki eta handiek, iragana estali eta **ahantzarazi** ordez, berritu egiten zizutela bizi beharraren pisua. Hasier Etxeberria

Ahantzarazi dizkit Jainkoak neure atsekabeak eta aitaren etxea. Jose Antonio Mujika

Janak eta oiloarekin batean erdietsitako arno pizarrak azken bi egunetako liskarrak **ahantzarazi** zizkiguten. Aingeru Epaltza

Nik jipoi bat hartzeak ez dio izeba Margeri **ahantzaraziko** entzundakoa. Iñaki Mendiguren

Hain une eztiak zein pena ez lituzke **ahantzaraziko**? Jon Muñoz

Higanotaren eskuizkribuak zerbait deabruzkoa izan behar du zinez, Jainkoarekiko eginbeharrak ere **ahantzarazi** baitizkio. Aingeru Epaltza

Beharrik bazkari onak fite **ahantzarazi** baititu goizeko ortzi eta euriteak. Herria

Haren irriñoak istant bat lehenagoko goibeldura **ahantzaraztea** zuen helburu garbia. Aingeru Epaltza

Oihaneko usain eta soinuek eskualde hura gerlapean zegoela **ahantzarazten** zuten. Elena Touyarou

Katedralaren dorre lirainek, lehengo aurrekalde erromanikoa **ahantzarazten** bezala dutelarik, plazaren hedadura zabala, kontrastearen medioz, urrunago barreiatzen dute. Piarres Aintziart

Azaldu ezinezko poza sumatzen zitzaien, nekeak oro **ahantzarazten** zizkiena eta zangoak arintzen. Xabier Montoia

Ederretarik eskapatu zirela bazekiten, halere eta, horrek, itzuli handiaren luzetasuna **ahantzarazten** lagundu zituen. Eneko Bidegain

Orkoekiko beldurra, aldi batez haserreak eta etsipenak **ahantzarazia**, beregana itzuli zen. Agustin Otsoa

Liskarrak kasik **ahantzarazi** egin zizkion bere oinazearen zergatiak. Patxi Zubizarreta

-, bere katramilak ordu batzuez zeharo **ahantzarazten** zizkiona eta abere apasionatu edo printzesa maitale sentitzea posible egiten ziona. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahantzarazi behar** (3); **ahantzarazi egin** (4); **ahantzarazi egin zion** (3); **ahantzarazi zidan** (4); **ahantzarazi zion** (3)

---

ahantzezin *(orobat **ahantziezin** g.er. eta **ahanztezin**) izond* ezin ahantzizkoa.

Ahantzezina ahantzi zaie. Xabier Montoia

Egun eta gau **ahantzezin** haiek iritsi zituan, ehizaldiaren eguna, eta egun osoan ez nian burutik kendu ahal izan niri apuntatu hidala, jaurtigai ustekabeko bat nire buruaren ondoan ziztuan pasatua zela. Xabier Olarra

Ez naiz oroitzen nork idatzi zuen zehazki gogoratzen ez zaidan memoriari buruzko esaldi **ahanztezin** hura. Joxerra Garzia

Gau **ahanztezin** batean izan bainuen ustekabeko hura...! Joan Mari Irigoien

Ni ere tarte **ahanztezinak** iragana nintzen Ximurraren ondoan. Aingeru Epaltza

Baina aurkitu genuen halere kili-kili zenbaiten egiteko parada eta elkarrekin momentu **ahantzezinak** iragan genituen. Daniel Landart

Cromwellek ondorio **ahantzezinak** utzi zituen Irlandan, boterean denbora luzean egon ez arren. Berria - Harian

Tribuko kusiak, hain maitatuak, haurtzaroko jostetakide **ahantzezinak**, eta lankide bazterrezinak, errekontruzko ezezagunak. Piarres Aintziart

Utzi iezadazue, eseri aurretik, perla ezin ordainduzko eta **ahantzezin** honekin amai dezadan. Oskar Arana

Oreina ilargipeko azken une grinatsuez oroitzen duk, larrearen erdian gelditzen duk, amodiozko borrokaren lekuan, buru likatsu eta zauritua harro altxatu, eta, aztoramenak gorrituriko begiez, serio eta goibel, grina bat **ahantzezin** bihurtu zaionaren antzera ingurura begiratzen dik. Xabier Olarra

Hari so segitzen zuen, sekula berriz ikusi behar ez balu bezala, bere burmuinean betikoz grabatu nahi balu bezala, oso-osorik, Gülbaharren irudi **ahantzezina**. Fernando Rey

Bacourt-eko baronesak (zeinaren vendredi **ahanztezinetan** izan bainuen gure malkoetako poeta ezagutzeko ohorea) ondoko lerroak onesteko grazia egin dit. Juan

Garzia

Ahantzezinezko elkarretaratzeak ere, Normaren harrera, adeitasun eta antolakunde baliosari esker. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahanztezin hura** (4)

---

ahantzi *(ETCn **12.177** agerraldi; cf **ahaztu 52.573** agerraldi)* , ahantz, ahanzten da/du *ad* ahaztu.

Diruz ordaintzen ahal diren makurrak **ahanzten** dira. Herria

Ez dezagun **ahantz** Grezia izan dela gure zibilizazioaren ama, bere olerkari, kantari, zizelkari, arkitekto eta bertze filosofo guziekin. Herria

Horrek zer esan nahi du, idatzi arren ez dituzula **ahanzten** ? Ana Urkiza

Adiskide eskuzabala eta sentikorra naizenez, laido hori **ahanzten** dut zure arriskuan baizik ez pentsatzeko, eta arrisku horretan gogoeta egitea hain delarik ere gogaikarria, amore ematen diot une honetan duzun premiari. Jon Muñoz

Ez dakiola **ahantz** . Oskar Arana

Ahantzia zuen mendiko astearen ondoko zalantza uhina. Itxaro Borda

Heriotzaz **ahanzteko** trikimailu ona duk, ez zaik iruditzen? ", Walserrek, eta, librako garbantzu-burudun begiralea hurbiltzen ari zitzaigula konturaturik, begiak beste toki batera brau eraman, eta salto txikiak ematen segitu du. Anjel Lertxundi

Preso gazteak, biltzarrarena **ahantzirik** , hurreratuak ditugu. Koldo Izagirre

Ahantz ez ditzadan izango da... Iñigo Aranbarri

Argitan, idazmahaia paperez eta arropaz gainezka; ilunetan, ohea, eta barruan Mikel, ahuspez lo, hankak zabalik, **ahantzita** utziriko guraizeak bezain zabalik. Unai Iturriaga

Berehalaxe **ahanzten** ditut. Monika Etxebarria

Hiru gizonezkoen artean adinduena zirudienak, guztien izenean mintzatuz, erran zion berak ere atsekabeturik zeudela, ez zutela nehoiz **ahantziko** . Josetxo Azkona

1970ean gosetearen aurka borrokatzen zen Londresko erakunde batek honelako eslogana aukeratu zuen bere kanpaina egiteko: **Ahantz** itzazu gose direnak, eta desagertu egingo dira Txema Ramirez de la Piscina

Denbora iragan eta gertaturikoa **ahantzia** zen, noiz eta, ilunabarreko eguzki motelarekin batera, Helenaren begietatik argia ezkutatu eta distira itzali baitzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezaguna nuen nik Tampico aspaldiskotik, behinola han egindako eta bizi naizen artean sekula **ahantziko** ez dudan arrain-jate pozoitsu batengatik. Joxe Austin Arrieta

Oi, bidaiariak, jakintzale lotsagabeak, ez ezazuela **ahantz** ! Koldo Izagirre

Alabaina, gertatu zen jauregian zerbait **ahantzi** , eta gau erdian hara itzuli behar izan zuela. Patxi Zubizarreta

Pare bat pauso egin eta berehala, ordea, zerbait **ahantzi** izan balitzaio bezala buelta eman eta Mariri berriro itaundu zion... Martin Anso

- **Ahantz** itzazu, dama, esan dizkizudanak; maite duzun hori munduko zaldunik onena da, benetan, ni baino hobea, ederragoa eta adeitsuagoa. Juan Kruz Igerabide

Orain arte idatzi ditudanen errepaso mentala eginez: ez dakit gogoratzen ari naizen ala **ahanzten** . Anjel Lertxundi

Gauzak horrela, nik ezin diot eskatu min larria jasan duenari **ahantz** dezan. Joxerra Garzia

Ez ezak hori **ahantzi** sekula. Hasier Etxeberria

-Egiok trago eta **ahantz** astopito horretaz -eskaini zion Ttipik botila. Aingeru Epaltza

Esklabo eskolagabearen jakiteak, dena den, oroipenarekin edo erreminizentziarekin du zerikusia, zeren **ahantzia** zuenaz oroitu egin baita. Askoren artean

Uste nuen kasik **ahantzia** zenuela. Janbattitt Dirassar

- **Ahantzia** nian hi krimenaren esteta bat hintzena -atera zitzaidan. Joxean Agirre

Pertsonaiaren mitifikazioa, haren interpretazioak eta are ospea bera, **ahantzirik** ez bada, alde batera utzirik bederen apur batez. Juan Garzia

Guztiarekin ere, kapitainak June ikustean bakarrik **ahantz** zitzakeen munduak ezartzen zizkion zama absurdoak. Fernando Morillo

Jadanik **ahantziak** ditu han bildu inpresioak, han jaso aipamen eta gainerakoak -beti bezala ia inork ez baitu bere liburuetarik bat ere irakurri-. Jose Angel Irigaray

- "Edertasunaren altzoan gau bat eman nahi izanez gero, **ahantz** ditzagun geure kezka guztiak", edo horrelako zerbait... Lopez de Arana

Joxe Agustin Mendizabalen irribarre lasaia ezin **ahantzizkoa** zaigu. Pello Zabala

Hori zela dena, esan genion, **ahanzteko** hura eta saiatzeko erlaxatzen, gozatzeko asteburuaz. Joxemari Iturralde

Pozarren joko dituzu piezok, baldin teknikaz **ahanzten** bazara. Anjel Lertxundi

Arlotekeria horien egileen izena berehala **ahanzten** zen, ordea, eta hala hobe gainera, hartara egileon ezgaitasun artistikoaren sona ez baita iraunkor bihurtzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gure solairuan geundela gogoratu da amaordea ogiarentzako errazionamendu txartelak erabiltzea **ahantzi** duela. Urtzi Urrutikoetxea

Konfiantza baitute nigan, eta beren senari arreta egiteaz **ahantziak** dira. Xabier Aranburu

Inboluzioaren gaineko gogoetak **ahantzi** ezinik zebilen artean. Lutxo Egia

Ezin konta ahala areto handi izugarrietan barrena gidatu ninduen ondoren, jende samalda handien aurrean aurkeztuz eta entzun arau **ahantzi** egiten nituen izenak esanez. Joxan Elosegi

Ez dezagun **ahantz** hurrengo puntua. Andres Urrutia

Baina trikitilariek ez zuten maisu zaharra **ahantzi** . Koldo Izagirre

Nire gelan nengoen, ohean etzanda, eta, hala ere, atzerrian sentitu nintzen, bakarrik eta **ahantzia** . Felipe Juaristi

Ezin **ahantzizkoak** suertatzen ziren orduko gizartetik begiratuta. Pello Zabala

Suntsitua zen, ordea, arrastorik utzi gabe: eta haurtzaroko arrain-garbitzaile zalapartiak ere, **ahantzi** egin dira jadanik. Txillardegi

-Ez - etxeko zein txokotan **ahantzi** ote nuen gogoratzen saiatzen naiz, alferrik. Iban Zaldua

Eta ezin nuen hura saihestu edo **ahanzten** saiatu, zeren, azaltzen zenean, sentimendu hark indarkeriara jotzen baitzuen. Alberto Ladron Arana

Nire buruan ez bezalako oihartzun makurra hartu zuen espresioak amonaren ahotan, gutxietsia sentitu bainintzen, nahiz amonak nahi zuen harexen bila nenbilen neu ere: saltzailea **ahantz** zedila nitaz. Anjel Lertxundi

Zorionez, xarmagarri zegoen Honoré gau hartan eta akuria **ahantzi** egin nuen kasik. Joxan Elosegi

Ez nazakela **ahantz** , eta gure semea salba ezak. Elena Touyarou

Irulegiko Irratiari agur isil bat bota diot, **ahantzi** gabe hemengo bi gizon ospetsuenak izan ziren Narbaitz eta Ybarnegaray. Piarres Aintziart

Sekula **ahantziko** ez ditudan data eta mementoa. Txillardegi

Ezer ez zait **ahanzten** , zentzu batean, eta horixe da nire tragedia. Koro Navarro

Berehala, zertatik eta zertara guztiak **ahantzirik** , mendi-botek eta haien inguruan gibelera geldituz doazen bide tarteek bete diote ikuspegia. Aingeru Epaltza

Halere, agindua bera ez da zentzu izugarrikoa (ez **ahantzi** , ordea, gero balio erlijioso edo morala izan den asko, higiene edo kortesiako agindutxoa izanez hasi dela!). Joxe Azurmendi

Kantu haietako gehienak guztiz **ahantziak** ditut, nire oroimena ere ez da bereziki ona. Xabier Mendiguren Elizegi

Ahantz ditzagun atzerako martxak, oginoak, egunak eta egutegiak, eta bakoitzak aukera dezala berarentzat erosoena den metodoa eta benetan eraginkorra dena. Luis Elberdin

Auzo herrietako erretoreak **ahantzi** gabe, haren predikuen famaz jelos. Aingeru Epaltza

Gogoratzen zuen bai, nola **ahantzi** , 50 euro ordaindu zizkigun antolatzailea. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahantz beraz (4); **ahantz beraz** (4); **ahantz dezagun** (4); **ahantz dezagun** (4); **ahantz ditzagun** (6); **ahantz ditzagun** (6); **ahantz ere** (11); **ahantz ere** (11); **ahantz ez** (14); **ahantz ez** (14); **ahantz ezazu** (9); **ahantz ezazu** (9); **ahantz ezen** (7); **ahantz ezen** (7); **ahantz gure** (4); **ahantz gure** (4); **ahantz itzazu** (4); **ahantz itzazu** (4); **ahantz telefono** (14); **ahantz telefono** (14); **ahantz telefono zenbaki** (13); **ahantz telefono zenbaki** (13); **ahantzi ahal** (4); **ahantzi aurretik** (4); **ahantzi behar** (113); **ahantzi behar ere** (4); **ahantzi behar ez** (4); **ahantzi dut** (7); **ahantzi edo** (5); **ahantzi egin** (40); **ahantzi egin behar** (4); **ahantzi egin zait** (4); **ahantzi egiten** (12); **ahantzi eta** (32); **ahantzi ez** (10); **ahantzi ezen** (5); **ahantzi ezinik** (4); **ahantzi gabe** (277); **ahantzi gabe eta** (6); **ahantzi gabe gure** (6); **ahantzi nahi** (30); **ahantzi nintzen** (4); **ahantzi nuen** (5); **ahantzi zait** (4); **ahantzi zen** (4); **ahantzi zituen** (9); **ahantzi zuela** (4); **ahantzi zuen** (7); **amatxiak ahantzi** (4); **amatxiak ahantzi gabe** (4); **arras ahantzi** (4); **baina ahantzi** (6); **baina ez ahantzi** (5); **bat ahantzi** (7); **bat ez ahantz** (4); **bat ez ahantz** (4); **batzu ahantzi** (5); **beraz ez ahantz** (5); **beraz ez ahantz** (5); **bidea ahantzi** (5); **bidea ahantzi gabe** (5); **da ahantzi** (41); **da ahantzi behar** (35); **dela ahantzi** (4); **dena ahantzi** (9); **dezagun ahantz** (45); **dezagun ahantz** (45); **dezaket ahantz** (4); **dezaket ahantz** (4); **dira ahantzi** (7); **dira ahantzi behar** (5); **ditu ahantzi** (5); **ditugu ahantzi** (6); **ditzagun ahantz** (4); **ditzagun ahantz** (4); **du ahantzi** (10); **dugu ahantzi** (21); **dugu ahantzi behar** (16); **dut ahantzi** (8); **dute ahantzi** (14); **edo ahantzi** (4); **ere ahantz** (5); **ere ahantz** (5); **ere ahantzi** (25); **ere ahantzi gabe** (5); **eta ahantz** (6); **eta ahantz** (6); **eta ahantzi** (20); **eta ez ahantz** (19); **eta ez ahantz** (19); **eta ez ahantzi** (7); **eta ezin ahantzi** (4); **etzazula ahantzi** (4); **ez ahantz** (154); **ez ahantz** (154); **ez ahantz beraz** (4); **ez ahantz beraz** (4); **ez ahantz ere** (5); **ez ahantz ere** (5); **ez ahantz ezen** (7); **ez ahantz ezen** (7); **ez ahantz telefono** (14); **ez ahantz telefono** (14); **ez ahantzi** (42); **ez da ahantzi** (36); **ez dezagun ahantz** (45); **ez dezagun ahantz** (45); **ez dezaket ahantz** (4); **ez dezaket ahantz** (4); **ez dira ahantzi** (5); **ez ditu ahantzi** (5); **ez ditugu ahantzi** (4); **ez ditzagun ahantz** (4); **ez ditzagun ahantz** (4); **ez du ahantzi** (8); **ez dugu ahantzi** (18); **ez dut ahantzi** (4); **ez dute ahantzi** (14); **ez zuen ahantzi** (4); **ezin ahantz** (18); **ezin ahantz** (18); **ezin ahantzi** (12); **ezin ahantzi nuen** (5); **guztiz ahantzi** (4); **hori ahantzi** (5); **igorriz ez ahantz** (9); **igorriz ez ahantz** (9); **nehor ahantzi** (5); **nehor ahantzi gabe** (5); **nola ahantz** (12); **nola ahantz** (12); **nola ahantzi** (9); **sekula ahantzi** (10); **sekulan ahantz** (4); **sekulan ahantz** (4); **sekulan ahantzi** (10); **zerbait ahantzi** (6); **zuen ahantzi** (7)

ahantzia bezala (6); **ahantzia dago** (4); **ahantzia dut** (10); **ahantzia dute** (6); **ahantzia dutela** (4); **ahantzia edo** (4); **ahantzia ere** (6); **ahantzia izan** (12); **ahantzia izanen** (4); **ahantzia nola** (5); **ahantzia nuen** (18); **ahantzia ote** (5); **ahantzia zen** (5); **ahantzia zuela** (4); **ahantzia zuen** (13); **ahantzia zuten** (6); **ahantziak bezala** (4); **ahantziak ditut** (4); **ahantziak izan** (10); **ahantziko dut** (4); **ahantziko ez** (17); **ahantziko ez ditudan** (4); **ahantzirik eta** (4); **aise ahantziko** (4); **arrunt ahantzia** (4); **da ahantzia** (7); **dira ahantziak** (6); **ditu ahantziak** (5); **ditugu ahantziko** (4); **du ahantzia** (7); **du ahantziko** (5); **dugu ahantzia** (8); **dugu ahantziko** (10); **dut ahantzia** (5); **dut ahantziko** (11); **dut sekula ahantziko** (5); **erabat ahantzia** (7); **ere ahantzia** (8); **ere ahantziko** (7); **eta ahantzia** (6); **eta ahantziak** (6); **ez ahantzia** (5); **ez ahantzirik** (4); **ez da ahantzia** (6); **ez dira ahantziak** (6); **ez ditugu ahantziko** (4); **ez du ahantzia** (7); **ez du ahantziko** (5); **ez dugu ahantzia** (8); **ez dugu ahantziko** (10); **ez dut ahantzia** (4); **ez dut ahantziko** (10); **ez zuen ahantzia** (5); **ez zuen ahantziko** (4); **ezin ahantzia** (8); **ezin ahantziak** (4); **ezin ahantzizko** (26); **ezin ahantzizkoa** (10); **ezin ahantzizkoak** (6); **hori ahantzia** (6); **inoiz ahantziko** (9); **jadanik ahantzia** (4); **kasik ahantzia** (7); **kasik ahantziak** (5); **sekula ahantziko** (17); **sekula ahantziko ez** (5); **sekulan ahantziko** (13); **zuen ahantzia** (5); **zuen ahantziko** (4)

ahanzten ahal (12); **ahanzten ari** (5); **ahanzten dira** (6); **ahanzten dugu** (4); **ahanzten dutela** (4); **ahanzten eta** (6); **ahanzten ez** (13); **ahanzten zuen** (4); **aise ahanzten** (9); **bat ahanzten** (4); **berehala ahanzten** (5); **ditu ahanzten** (4); **ditugu ahanzten** (5); **du ahanzten** (4); **dugu ahanzten** (8); **dut ahanzten** (5); **dute ahanzten** (4); **ere ahanzten** (12); **eta ahanzteko** (5); **eta ahanzteko** (5); **eta ahanzten** (4); **ez ahanzteko** (16); **ez ahanzteko** (16); **ez ditu ahanzten** (4); **ez ditugu ahanzten** (5); **ez du ahanzten** (4); **ez dugu ahanzten** (7); **ez dut ahanzten** (5); **ez dute ahanzten** (4); **hori ahanzten** (5); **sekulan ahanzten** (5)

---

ahantziezin ik **ahantzezin**.

---

ahantzixe *adlag* ahantzi samar.

Milizianoak aulkitxo banatan eserarazi gintuen, eta bera atearen hutsartean kokatu zen bere aulkian, irteera oztopatuz bezala: metrailadorea belaun artean zutik zeukan, baina handik minutu gutxira erdi lo zegoen, gutaz **ahantzixe**. Juan Garzia

---

ahanzgarri *izond/iz* ahantzarazten duena.

Aire girotuaren ferekak goizaldearekin eztitu gabeko kanpoko tenperatura itogarriaren **ahanzgarri** ziren, behiala hainbertze izerdi isuritako tokian. Aingeru Epaltza

Ahalegina eskertzen nion, baina zurruta hobesten nuen nahigabeen **ahanzgarri**. Aingeru Epaltza

Zeren ohiturek eta azturek noiznahi-den alda bailezakete gure izatasuna eta bigarren izatasun bat osa, lehenengoaren eta etorkikoaren estalgarri eta **ahanzgarri**. Joan Mari Irigoien

Halako bolada zerrietan, lana duk **ahanzgarri** hoberena. Aingeru Epaltza

Musika, min **ahanzgarri**. Felipe Juaristi

---

ahanzkor *izond* ahazkorra.

Ene izena ere berak hautatu zuen: Joanes, erreginaren laudorioan eta bere aita Labrit **ahanzkorraren** oroigarrian. Aingeru Epaltza

Euskaldunen oroimena ez da **ahanzkorra** eta holako gertakariek dituzte oraino azkartu bi partetan emana den Euskal Herriko jendeen arteko loturak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nik ez nuen hitzordu hura gogoan, baina, oso **ahanzkorra** naizenez, ez nintzen harritu. Iban Zaldua

Eskuina, hain **ahanzkorra** ote da? Herria

Zeren eta Jainkoa, luzakor bada ere, ez da **ahanzkor**. Joan Mari Irigoien

Galde horiek egitean, badakit **ahanzkor** direla jendeak eta herriak: "Les français ont la mémoire courte" erran zuen besteak. Herria

Holakoak dira politikariak, osoki **ahanzkorrak**. Herria

Gauak ezabatu egiten ditu akatsak, barkagarriago egiten ditu hanka-sartzeak, **ahanzkorrago** bihurtzen bekatuak. Joxean Agirre

-Eta gu, jendeok, **ahanzkorregiak** garela? Itxaro Borda

Luca etxean batera eta bestera ibiltzen zen soka harekin, bere baitan murgildurik, **ahanzkor** eta geldo, poliki mugituz eta inolako helbururik gabe. Fernando Rey

---

ahanzkortu, ahanzkor(tu), ahanzkortzen du *ad* ahaztu edo.

Euskara **ahanzkortu** eta gero galdu egin zuten, kaskoina aldiz ikasi. Herria

---

ahanzmen *iz* ahaztea.

Hiztegiak **"ahanzmena"** dakar, baina hiruzpalau belarrik entzundako hitza izango da, gehien jota, hitz hori. Joxerra Garzia

Burbuila hura ere, baina, noizbait ere lehertu egin zen eta **ahanzmenak** eta axolagabekeriak bildu zuen atzera Midak kalezuloa. Patxi Zubizarreta

Ahanzmena madarikatu duzu, ahulegia baita oroitzapenak oinatzik utzi gabe eraztekeo. Joxerra Garzia

---

ahanzmendu *iz* ahaztea.

Haren onuren oroitzapena sagaratzen dugu eta gogoangarri bihurtzen egun berezietako ospakizunetan, denboraren joanean eskergabeko **ahanzmenduan** eror ez gaitezen. Imanol Unzurrunzaga

---

ahanztarazi ik **ahantzarazi**.

---

ahanzte *iz* ahaztea.

Nire herria ezin dut ahantzi, nire ama **ahanztea** bezala litzateke. Berria - Kultura

Barkatuak, bai, eta ahantziak? Ez dut uste aiseago baita barkatzea, **ahanztea** baino. Herria

Gutarik bakoitzarentzat ez ote da premiazkoena bertzea **ahanztea**? Jon Muñoz

Gomendiozko karta bat ere bageneramala, eta gure nahia eta gure desira ez zela nehor hiltzea, baina indiarren alde lan egitea, eta kontu hura guztia **ahanztea**. Joan Mari Irigoien

Izan ere, orain banan-banan ari naiz kontatzen gauza haiek, baina orduan denak batera etortzen zitzaizkidan, eta horiekin batera beste asko, eta, hortaz, hobe zen **ahanztea**, gazte denboran gauza sobera pentsatzen baita. Pello Lizarralde

Egungo **ahanztea** atzo ikasia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Izan ere, **ahanztea** hil ala bizikoa daiteke munduko alderdi honetan. Xabier Montoia

Denboraz murritz eta zeozer **ahanztearen** fobia ariman iltzatua, burutazio nekeetan zebilen orduan adiskidea, salbatua hargatik. Itxaro Borda

---

ahanztezin ik **ahantzezin**.

---

ahanztola *iz* 'ahantzi' eta 'ikastola'ren arteko hitz jokoa.

Baina egin dezagun kontu badirela, asko edo gutxi, eskola onean (**ahanztolan**) gogor saiatu beharrean, mundua konpontzen entretenitu nahiago duten atzerakoi edo bertangoxozaleak. Iñaki Segurola

Eta halakoei kontseiluño bat eman behar zaie eskuzabalki **ahanztolatik**, zuhurki eta zorrozki galdetzen erakusten den eskola onaren legetik. Iñaki Segurola

---

ahanztu ik **ahaztu**.

---

ahanztura **1** *iz* ahaztea, oroimenaren hutsegitea, nahiz ikusitako gauzei buruz, nahiz, eskuarki, oroitzapenei buruz. ik **ahazmen**.

Zahartzaroak baditu bere pribilejioak, eta horietako bat, garrantzitsuena akaso, **ahanztura** da. Karlos Linazasoro

Ahanztura eragiten duen prozesuaren halako deskribapen zientifiko bat besterik ez zen! Pako Aristi

Eta, soka beretik, pentsatu nuen **ahanztura** dela gizakiaren hatsik ohikoena, eta argia malko desolatu bat besterik ez dela, noragabe doana, isiltasunera, edota, agian, hilotzek kantatzen duten ereserki izoztura. Karlos Linazasoro

Juan Martinek iragana, **ahanztura**, hila, orainera ekarri, berreskuratu, berpiztu nahi du, eta erabili, orain maite duena biziarazteko eta bereganatzeko. Markos Zapiain

Zorionez, lorik gabeko gau batzuen buruan, bere lana egin zuen berriro nigan **ahanzturak**. Juan Garzia

Gogo onez onartuko dut, jauna, niri dagokidanez, gertakari triste horiekin zerikusia dukeen eta haiei segida eman diezaiekeen oro isiltasunean eta **ahanzturan** uztea. Jon Muñoz

Bestondo latzeko goiz-beiletan ageri da **ahanzturaren** funtsa: esku ezezagun eta errukior batzuek arimari ematen dioten atxikigailua, hobenaren eta eromenaren erroiztegiari ihes egin ahal izan diezaion. Aingeru Epaltza

Hark jotzen zuenean airea jabaldu egiten zen, eta oroimenak, bere argia pizturik, **ahanzturaren** eremutik alde egiten zuen. Felipe Juaristi

Entseiatu banintzen ere jaun Marcelen irakaspenen ahanzterat eta **ahanzturaren** lurretan ehorzterat. Joan Mari Irigoien

Handik hara, aitak arrasto bat egin zuen bere bizitzan, **ahanzturaren** amildegiaren ertzean. Juan Kruz Igerabide

Bere ideia distiratsua ez du **ahanzturaren** saskira bota nahi. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Horrelako jainko batek geure onetik ateratzen gaitu amorruaren amorruz, eta betiko botako dugu **ahanzturaren** zokora. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ahanzturan itzali ezin den oroimenari zenbaitetan gertatzen zaion bezala. Joxan Elosegi

Nolabait **ahanzturaren** lanbroan galdu nahi izan genuela haren iragana. Karlos Linazasoro

Itzulpena ere ibilbidearen irakurketa modu bat da; **ahanzturaren** aurkako arma. Anjel Lertxundi

Lauaxetaren heriotza, Lauaxetaren desira: zapaldurik eta **ahanzturatik** atera zain egon den iragana. Joseba Zulaika

Aire zabalean biluzik egotea, horra egun hauetan Mikelek **ahanzturatik** erreskatatu duen bertze sentsazio bat. Aingeru Epaltza

Zer jarduera eta zer oinarri biltzen duen transmisioen, berreskuratzeen, **ahanzturen** eta errepikapenen jokoak. Xabier Arregi

Gaurkotasunak obsesionatua bizi den mundu hau, **ahanzturak** obsesionatutako mundua da. Patxi Zubizarreta

Indar horrek bertan etzandako gizonak ezeztatzen zituela eta iluntasunezko eta **ahanzturazko** erresuma batera igaroarazten. Oskar Arana

Hustasuna **ahanztura** da. Karlos Linazasoro

2 (izenlagunekin)

Ruche jaunaren buruan, luzaro, olatuen zarata... Itsasaldi bizia gero, eta erabateko **ahanztura**. Jon Muñoz

Gau Luze da, ordea, eta bakar, guztion gaua, eta gure malenkoniek ere ezinezko **ahanztura** eta emadura bilatzen dute balirako unibertso horien ametsean. Juan Garzia

Eta ezin hura jabetzen zen haien gauez eta gorputzez, "han" aipaezin hartan ezereztu, mutildu, torturatu eta beharturiko gorputz gaixo haietaz batez ere, ezinezko **ahanztura** baterantz ihesi saiatzen baitziren bata zein bestea. Joxan Elosegi

3 (hitz elkartuetan)

Hauts-laino eta **ahanztura**-itzalen artetik berreskuratu ahal izan ditudanak dira hemendik aurrerakoak. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahanztura da (3); **ahanztura eta** (5); **ahanztura ez** (3); **ahanzturaren eta** (3); **ahanzturatik atera** (3); **ahanzturatik berreskuratu** (3); **eta ahanztura** (8); **eta ahanzturan** (3); **eta ahanzturaren** (4)

---

ahapaldi *(ETCn **488** agerraldi)* **1** *iz* poema edo kideko bat banatzen den lerro multzoetako bakoitza.

Poema, hori bai, bi **ahapaldien** -baiezko eta ezezkoaren- esaldia litzateke, ez ahapaldi bakoitza bere aldetik. Joxerra Garzia

Zortziko handia beraz, lau puntutako **ahapaldia** da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zinez kantu ederra iruditu zitzaigun, nahiz **ahapaldi** batzuk baino ez eduki. Berria - Kultura

Honela hasten da kantuaren bigarren **ahapaldia**: [...]. Iñaki Segurola

Eresi kantari ipuinean, betiere baladaren **ahapaldiak** oinarritzat harturik, idazleak hankaz gora ipini zuen istorioa. Martin Anso

Ikusi ninduenean, uretik erdi jalgi eta bigarren **ahapaldia** kantatzeari lotu zen. Koldo Izagirre

Geroxeago, 1225eko ekainean, barkamenaren **ahapaldia** eransten dio kantikari. Askoren artean

Miren Agur Meabek katalan dotorez irakurri zituen Salvador Espriuren **ahapaldi** batzuk. Berria - Kultura

Ahapaldi bat falta bada ere, garbi dago poema berbera dela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Poema, hori bai, bi **ahapaldien** -baiezko eta ezezkoaren- esaldia litzateke, ez **ahapaldi** bakoitza bere aldetik. Joxerra Garzia

Nola oroitu, gero, hogeitaka **ahapaldi** zeramatzan bertso-sorta osoa? Pako Aristi

Goetheren eta Schillerren antzerkiak hartu ditu liburutegi handitik, eta **ahapaldi** batzuk irakurri nahi dizkit gauero. Josu Zabaleta

Orduan Pastoralaren aurkezpena egin du kantari nagusiak, "lehen pheredikia" delakoa, launa **ahapaldi** oholtzaren kantoietan emanez. Txillardegi

Zortziko handia beraz, lau puntutako **ahapaldia** da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

2 (izenondoekin)

Xume, sakon eta **ahapaldi** dotoreak eginez, Igerabidek poesiaren mailuari heltzen dio, Gabriel Arestik zioen mailu berberari. Berria - Kultura

Errimarik gabeko **ahapaldi** estu sentimenduz bete haiek. Jon Muñoz

"Rotxelan, Pierre Hautin inprimatzale/1571n", halaxe zekarren armarriaren behealdean, armarriaren beraren eta hitz horien artean Mateo ebanjelariaren **ahapaldi** zuzen bat zelarik,"Haur da ene Seme maitea, zeinetan neure atsegin ona hartzen baitut, honi beha zakizkiote". Edorta Jimenez

Entzun daitekeenez, gezi geldi ezina, aurretik atzera doana **ahapaldi** soinudun eta hots handikoetan. Felipe Juaristi

Nire ibilia pausatu dut, eta aditzeko ahalegin berezia egin dut: gelako atearen beste aldetik **ahapaldi** berbera, behin, bitan, hirutan errepikaturik heldu zait.Genesiaren bigarren **ahapaldi** goibel eta miragarrian irakur baitaiteke ("Jaunaren haizeak hats egiten zuen uren azalean gaindi"). Iban Zaldua

Ahapaldi laburragoak edo luzeagoak dira, puntu kopuruari dagokionez aurrekoen desberdinak, baina halere gehienean berdinak silaba kopuruari eta lerro bikoitzetan errimatzeari bagagozkio. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bukaerako **ahapaldiak** honela dio: 'Artzainak alferrak ditun ase ta ongi nahi/ hobe dun bertzetarik edozein nahi'. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Bestelako **ahapaldi** -mota hauen artean koplak dauzkagu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Poema hauxe bera, **ahapaldi** pare bana bi erpinetan erantsiz, salmo eta otoitz-kanta bihurtu zuen. Pello Zabala

Poesian esaterako, Tximeleta Hegalari izeneko artista bat nabarmendu zen, besteen gainetik, idatzi zituen maitasun-**ahapaldien** bidez. Felipe Juaristi

4 esaldia.

1582an de Thou frantzes historiazaleak **ahapaldi** hau izkiribatü züan: "Jean de Liçarrague, ministre de l'église (de la Bastide Clairence)... avait traduit le Catéchisme et le Nouveau Testament en langue biscayenne (sic)...". Herria

Etsenplütako hona behin, bilküra pübliko batetan, Mauleko alderdi bürü baten ahotik entzün nüana, han zauden güziek bezala: "Maule ez da basko", eta hori aski ez balitz bezala, beste **ahapaldi** hau gehitü züan: "Maule ez dago Eüskal Herrian". Herria

Bi umeren aita, **ahapaldi** itsusiak entzun behar dizkio Filomenari: "Tripa ustela! Jangoluke! Nire alabaren kontura bizitzea uste al duk? Pablo Sastre

"Presoen suizidioak, finean, heriotza-zigorra zeharka nahiz bide makiabeliko estrajudizialetatik erabiltzea esan nahi du", jartzen du idatziaren azkeneko **ahapaldian**. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahapaldi bat (5); **ahapaldi batzuk** (3); **ahapaldi hau** (5); **ahapaldien artean** (3); **beste ahapaldi** (5); **bigarren ahapaldia** (3); **eta ahapaldi** (4)

---

ahapean *(ETCn **32** agerraldi; orobat **ahopean** ETCn **1.041** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ahopean** agertzen da)* *adlag* ia entzuten ez den ahotsez. ik **ahopean**; **ahapeka**; **ahapetik**; **ahapez**.

Zuriz jantzitako moja bat agertu zen gelan eta gaixoari buruzko azalpen tekniko batzuk eman zizkion Aita Arbizuk **ahapean**. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehen bezain mutu jarraitu zuen berriro zuzendurik, irri egiten zuela **ahapean**. Koldo Izagirre

Ahapean hitz batzuk trukatu ondoren, biak, eroslea eta dendaria, dendako erditzaletara sartzen ziren. Alberto Ladron Arana

Trafiko gutxi zebilen autobidean baina langarrarekin bustia zegoen errepidea; abiada mantsotuta, oroitzapenak hasi zitzaizkidan trumilka: zenbat aldiz entzun ote nuen Aita Morlansen izena, etxeko sukaldean eta ia-ia **ahapean**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

ahapeka *(ETCn **2.482** agerraldi; orobat **ahopeka** **1.007** agerraldi)* **1** *adlag* ia entzuten ez den ahotsez. ik **ahopeka**; **ahapean**; **ahapetik**; **ahapez**.

Ahapeka, ordea, ia xuxurla batean, frantsesek aurpegi txarrez begiratzen ziguten-eta beste hizkuntzaren batean, alemanez batez ere, aritzen ginenoi. Anjel Lertxundi

-Zer moduz bart? -jakin nahi izan zuen Agustinak, eta galdera **ahapeka** egin zuen-. Aitor Arana

Annie luze aritu zen **ahapeka**, eta gu hitzak harrapatzen saiatu ginen.Baina ele gaiztoek **ahapeka** ziotenez, Savall jeneral-buruarekin izandako uztar gehiegiek ere sendagailua behar zuten. Koro Navarro

-Ez da ezertaz konturatu -esan nien **ahapeka** besteei. Koldo Biguri

-Nellie, goazen beste gelara -esan zuen abokatuak ahots dardaratiz, **ahapeka**. Lopez de Arana

"Horrela, horrela" dio berak **ahapeka**. Oskar Arana

-Ni ez noa inora! -esan nion **ahapeka**, irmotasunik gabe. Inazio Mujika Iraola

-Ez nauzu entzuten? -galdetu nuen **ahapeka**. Juan Garzia

Belarrira eta **ahapeka** hitz egin nion, inork entzuteko beldurrez baino, erregu-tonu egoki baten bila. Anjel Lertxundi

Ellen **ahapeka** mintzatu zitzaion entzungailuari. Lopez de Arana

Ahapeka bukatu nuen kantua. Inazio Mujika Iraola

Horra Léa abian, hamaka batean etzanda, ibaian behera Belemeraino zihoan janariz zamatutako ibai-bazterreko ontzitxo batean, herriminezko kantuak **ahapeka** kantatzen zituzten morroiz inguratuta. Jon Muñoz

Hirurogeita hamar urte inguruko emakumezko bat ikusten zuen eserlekuan uzkurtuta, lehen hegaldiaren beldurra ezkutatu ezinik, errezoan, **ahapeka**. Imanol Zurutuza

'Ba ez dakit,' esan nion **ahapeka**. Joseba Sarrionandia

'Bai...' erantzun zidan **ahapeka**. Joseba Sarrionandia

Tristura guztiak oroimenetik ezabatzeko ahalmena duten hitz lasaigarriak, **ahapeka** esanak, musu kartsuek etenak. Jose Morales

Bere burua "Lautada biluzia" berrirakurtzen atzematen zuen, eta telefono-zenbaki hura **ahapeka** errepikatzen: 3882621, 3882621, 3882621. Iban Zaldua

Gauez, ama Chantemessek **ahapeka** solasean entzuten zituen. Karlos Zabala

Oso **ahapeka**, ordu arte ez bezalako zuhurtziaz, hitz egin zidan Umbertok egunkari banatzaileari buruz: [...]. Anjel Lertxundi

Hurbiltzen ari direla, kasik **ahapeka**, galdera bota dio Bertak: [...]. Iban Zaldua

Une berean, **ahapeka** baina argi, ongi hezitako gizona zela erakutsiz, galdetu dit: "Wie alt bist du?", bidenabar galdetuko balu bezala. Urtzi Urrutikoetxea

2 ***ahapeka hitz egin***

Ahapeka hitz egiten zuen, gorabeherarik gabe: "O, hau dena zortea duk, baina hauxe duk Merivaletarrengana jotzen dudan azken aldia. Lopez de Arana

Etxeetan ere **ahapeka hitz egiten** zuten. Koldo Biguri

Ama urrundu orduko, V. sendagilea **ahapeka hitz egiten** hasi zitzaidan, urduri. Joseba Urteaga

Jendeak begi zeharka eta ezker-eskuin begiratzen zuen ezer esan aurretik; gero, **ahapeka hitz egiten** zuen, baita zelai baten erdian ere eta inor ikusten ez zela hainbat kilometrotako ingurumarian. Anjel Lertxundi

Honela, dakian guztia esan eta gertatutakoa kontatzeko aukera izango duk, **ahapeka hitz egin** badezakek. Agustin Otsoa

Batzuetan negarrez etortzen zen lanera, eta **ahapeka hitz egiten** zuen. Lander Garro

Amak **ahapeka hitz egiten** zion aitari aldameneko gelan. Joseba Urteaga

-Bai -azkura egin zuen Justok belarrian, **ahapeka hitz eginaz** jarraitu aurretik. Joxemari Urteaga

Hango jendea oinutsik zebilen; **ahapeka hitz egiten** zuen. Juan Garzia

Arratsaldeak **ahapeka hitz egiten** du eta bihotzean antzematen dut. J.M. Olaizola "Txiliku"

Doinua berehala apaldu, eta **ahapeka hitz egin** zuen, hitzak ondo ahoskatuz -: Indarrez behartzen bazaituzte, hitz egizu berehala; entzun didazu, Max? Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahapeka ari (8); **ahapeka baina** (4); **ahapeka bezala** (5); **ahapeka egin** (3); **ahapeka esan** (16); **ahapeka esan nion** (3); **ahapeka esan zion** (5); **ahapeka esan zuen** (4); **ahapeka eta** (14); **ahapeka hasi** (5); **ahapeka hitz** (16); **ahapeka hitz egin** (4); **ahapeka hitz egiten** (11); **ahapeka hizketan** (3); **ahapeka ia** (3); **ahapeka kantatzen** (3); **ahapeka mintzatu** (4); **ahapeka zerabilen** (3); **amak ahapeka** (5); **bat ahapeka** (3); **dio ahapeka** (6); **du ahapeka** (6); **erdi ahapeka** (4); **esan nuen ahapeka** (3); **esan zion ahapeka** (6); **esan zuen ahapeka** (10); **esaten du ahapeka** (3); **eta ahapeka** (24); **eta ahapeka esan** (6); **eta ahapeka hitz** (5); **goiori ahapeka** (3); **ia ahapeka** (9); **kasik ahapeka** (4); **nion ahapeka** (5); **nuen ahapeka** (4); **zen ahapeka** (5); **zidan ahapeka** (5); **zion ahapeka** (9); **zuen ahapeka** (15)

ahopeka esan (17); **ahopeka hitz** (12); **esan zuen ahopeka** (8); **eta ahopeka** (20); **ia ahopeka** (5); **zuen ahopeka** (12)

---

ahapekako *(ETCn **23** agerraldi; orobat **ahopekako**, ETCn **9** agerraldi)* *izlag* ahapeka esandakoa edo egindakoa. ik **ahopekako**.

Zaila da elizaren balioan edo Donatelloren eskultura eta erliebeetan arreta jartzea, handia baita erlauntza erraldoi batekoa bezalako hotsa, **ahapekakoak** izan nahi duten jardunek eta hanka-pausoek sortua Berria - Kultura

Azken boz batzuk entzun ahal izango dira itsasontzietatik, baina ulertezinak, **ahapekakoak** . Joseba Sarrionandia

---

ahapekatu, ahapeka(tu), ahapekatzen *(ETCn **15** agerraldi; orobat **ahopekatu**, ETCn **17** agerraldi)* du *ad* ahapeka esan. ik **ahopekatu**.

Batek **ahapekatu** zuen: [...]. Itxaro Borda

Zeinatu zen, lo-gelako Jesuskristori barkamena eskatu zion eta **ahapekatu** zuen: -Kalma hadi gizona - **ahapekatzen** zion Mikelek, egoeraren larria neurtzen zuela. Itxaro Borda

Pentsakor jarraitu nire ganbito-irekierari nola aurre egin, eta txistuka ere bai, erabat urduritzen ninduen bere melodiarik gabeko txistukaldi erdi-**ahapekatu** , oharkabe eta balbula baten zirriztuko xuxurlaren moduko harekin. Joxe Austin Arrieta

Mauletar baten mintza-doinuan **ahopekatu** zuen, nire paretik pasatzean: [...]. Aingeru Epaltza

---

ahapeko *(ETCn **16** agerraldi; orobat **ahopeko** ETCn **83** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ahopeko** agertzen da)* *izlag* ahapean esandakoa. ik **ahopeko**.

Hans su eta gar aritu zen bere giltza eta ziri bildumarekin, izerditan blai eta **ahapeko** madarikazio ulertezinak botaz. haren ingurura bilduriko neskame-morroiak entzule eta lana amaitutakoan etxerantz zihoan jendearen **ahapeko** berbaroa lagun. Alberto Ladron Arana

Tabakoa betiere falta eta, berriz ere **ahapeko** madarikazioetan, lehiatu nintzen pertsiana goititzera. Aingeru Epaltza

---

ahapetik *(ETCn **588** agerraldi; orobat **ahopetik** ETCn **292** agerraldi)* *adlag* ia entzuten ez den ahotsez. ik **ahopetik**; **ahapean**; **ahapeka**; **ahapez**.

Ahapetik eta burua plateraren gainera aurreratuta galdetu zion Luigik: [...]. Josu Landa

Ikastetxeko kapilaua hurbildu zitzaion Dopazori urduri, **ahapetik** mintzatu zitzaion. Koldo Izagirre

Arrats batez, beharri xilora **ahapetik** erran zidan nola egiten zuen jokoa. Marzel Etxehandi

-Kasu zer erraten duzun -abisatu zuen, **ahapetik** -. Elena Touyarou

-Nik ere maite zaitut, Josepe, ihardetsi zidan, kasik **ahapetik** , ene bihotzean erregin jartzen ari zen Magalik. Janbattitt Dirassar

Ahapetik eman nion "Purpletik" ateraz geroztiko gertakarien berri. Aingeru Epaltza

Txistu jotzen hasi nintzen, **ahapetik** , baina isildu nintzenean txistu hotsak nire atzean jarraitzen zuela iruditu zitzaidan. Koro Navarro

-Adio! -esan zuen **ahapetik** . Koldo Biguri

-Angiolillo egon zen ziega da hau! -esan dit **ahapetik** . Koldo Izagirre

-Bi dituk erantzun behar dizkidaan galderak -dio jeneralak, bera ere aurrerantz makurtuz: ia xuxurlaka mintzo da, **ahapetik** -. Xabier Olarra

-Joan egin dira-esaten du Iñakek **ahapetik** . Joxe Azurmendi

Kabuak, kontrabandista balitz bezala, erraiten dio Pettani, **ahapetik** : "Errak! Haugi hunat! -Nor haiz, hi? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahapetik mintzo (5); **du ahapetik** (3); **esan zuen ahapetik** (5); **zion ahapetik** (4)

---

ahapez *(ETCn **33** agerraldi; orobat **ahopez** ETCn **9** agerraldi)* *adlag* ia entzuten ez den ahotsez. ik **ahopez**; **ahapean**; **ahapeka**; **ahapetik**.

Bi urte zuela, planaren salatzeko lantokian inor ez zen kezkatu: emazteak ziren dudarik gabe, eta sagu-muturrekiko kontramaixuek gelditzen zirenei erraten zieten **ahapez** , hoberenak baizik ez zituztela atxiki. Itxaro Borda

Oraindik, **ahapez** nerrake, egarri berak eroaten gaitu: ezein politikariren eskuzabaltasuna bere moltsaren irekitzeko dohainaz neurtzen dugu, Joanesek arratsalde hartan aipatzen zidan emazteen libidoaren ildoaren izaritik baino. Itxaro Borda

Kameraren ninia Maianarekin, Yvonnerekin eta Jessicarekin **ahapez** ari zen Edmearengana zuzendu zuen. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahapetik eta (3); **ahapetik mintzo** (5); **du ahapetik** (3); **esan zuen ahapetik** (5); **eta ahapetik** (4); **zion ahapetik** (4); **zuen ahapetik** (8)

---

aharantza *iz* mintzatzeko modua.

Ikusi behar da, gainera, familian euskara erabilirik ere, zer nolako euskara erabiltzen duten: herriko mintzaira eta **aharantza** , euskara bateratua, eta abar. Pello Salaburu

---

ahardi 1 1 *iz* zerri emea.

Iratze meta bat bazuten muntatua eta urde **ahardi** edo zerrama eder bat ondo hartan zagon bere hamar umeekin. Herria

Gazte kaletarrak gerora ikasiko du zer diren Pernandoren **ahardiak** eta ordotsak, oloa eta zaia. Iñigo Aranbarri

Ilargi bakoitzeko zutitzen da **ahardia** bere zangoen gainean eta negar egiten du. Joxan Elosegi

Ene kide pilotu Mattinek utzitako arrainari olio gordina eta ozpina egin nizkion, bestela **ahardiek** ere jango ez zutena baitzen hura. Edorta Jimenez

Ahardietan, lehen saria biarnes batek. Herria

Zaldi bat ilargi-argitan grauska bazkan ari, eta esparru berean orkatz bat, baina zaratarik ez, eta urrunxeago **ahardi** beltz bat, eta indioilar bat, oinazturak izutu eta derrepente makakorroka hasi zena. Joxe Austin Arrieta

Gazura, berriz irakinarazten zen, gatzagiz hornitzen, bigarren gasnaren moldatzeko, edo sinpleki, zakurren orugu zalapartatsuen artean, beti gose eta kurrinka zeuden bargo eta **ahardi** zaharrei eskaintzen. Itxaro Borda

Ardietan urruz/ahariko, ahuntzetan urruz/aketo, behietan, betizuetan urruz/xexenko, behorretan behoka/zaldiko zerrietan, basurdeetan **ahardi/ordots**. Patziku Perurena

2 ***ahardi kume*** (irain gisa)

Ingelesa, **ahardi kumea**! -egia aldarri harexek adierazi zuen lehenik, eta beste askok gero, euskaraz eta erromantzez, biraoen artean. -Akabatu egingo haut, **ahardi** kume halakoa -pistola haztatu zuen-.-Zer diok, **ahardi** kume horrek? Edorta Jimenez

3 ***ahardi-seme*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* (irain gisa)

-A zer **ahardi-semea** Fleignies hori! ETC-literatura, saiakera

4 ***urde ahardi*** (irain gisa)

Berriz ere, iratze meta bat bazuten muntatua eta **urde ahardi** edo zerrama eder bat ondo hartan zagon bere hamar umeekin... Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ahardi kumea (3); **nire ahardi** (3)

---

ahari *(**296** agerraldi)* **1** *iz* ardiaren arra, adar biribilkatuak dituena.

Aharia mendebalderantz, iparralderantz eta hegoalderantz adarka ari zela ikusi nuen. Elizen arteko biblia

Har gaitzazu onez, **ahari** eta zezenak edo milaka bildots gizen erre-oparitzat eskainiko bagenizkizu bezala. Elizen arteko biblia

Biharamunean sakrifizioak eta erre-opariak eskaini zizkioten Jaunari: mila zekor, mila **ahari**, mila bildots, isur-opariekin batera. Elizen arteko biblia

Zazpi zezen, zazpi **ahari**, zazpi bildots eta barkamen-oparitarako zazpi aker ekarri zituzten. Elizen arteko biblia

Ilberri-egunetan zezen bat, sei arkume eta **ahari** bat, denak akasgabeak, eskainiko dizkit. Elizen arteko biblia

Hartu Aaronen sagarapenerako **ahari** honen bularra, eta aurkeztu Jaunari erritozko aurkezpen-keinua eginez. Elizen arteko biblia

Gero, zatikatu **aharia**, garbitu haren heste eta hankak, eta jarri okela-zatien eta buruaren ondoan. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Heldu da zuen hilketa-eguna, **ahari** gizenduak bezala eroriko zarete. Elizen arteko biblia

Larunbatetan, printzeak sei arkume akasgabe eta **ahari** akasgabe bat eskainiko dizkit erre-oparitzat. Elizen arteko biblia

Bildots gizenen haragia, aukerako **ahariak** eta akerrak, ogi-irin garbi bikaina eman zizkion janari eta ardoa, mahats-odola, edari. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zazpi apaiz kutxaren aurretik joango dira, **ahari**-adar bana harturik. Elizen arteko biblia

Aaronek eta semeek elkarketa-etxolaren sarreran jango dituzte **ahari**-okela eta saskiko ogia. Elizen arteko biblia

Opariak egitea baino hobe haren esana egitea; **ahari**-gantzak eskaintzea baino hobe hari esaneko izatea. Elizen arteko biblia

Gorriz tindaturiko **ahari**-larruak edo larru finak zeuzkatenek ekarri egin zituzten. Elizen arteko biblia

Egin bi estaldura oihal-etxolarako: bata gorriz tindaturiko **ahari**-larruzkoa, eta honen gainetik bestea, larru finezkoa. Elizen arteko biblia

Abigailek, bizkor, hartu zituen berrehun ogi, bi zahagi ardo, bost **ahari** burduntzian erreak, bost arroa gari xigortu, ehun mahaspasa-mordo eta berrehun piku-opil eta astoen gainean ezarri zituen. Elizen arteko biblia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hori zen sagarapen-**aharitik** Moisesi zegokion zatia, Jaunak agindua zion bezala. Elizen arteko biblia

5 ***ahari buru***

Bestalde, harresi eta dorreen fortifikazio-sistemak indartu egiten dira lubetekin babesten badira, zeren eta, orduan, ez **ahari-buruek**, ez lurpeko tunelek eta ez gainerako makinek ez baitiete kalterik eragingo. Santiago Iruretagoiena

Etxekoek Pentze Patarrera ardi zain igortzen ninduten opor arratsaldeetan, zenbaitetan paira dezakedan bakartasun larrutu hau itxuratzen nuela uste dut, egunerokotasun eskardatua, lo ezinezko ordu txikiak, **ahari buruz** zoratuen antzera kaskoa etengabe alhan, galdezka eta dudaz beterik. Itxaro Borda

Ukuilu hutsetik enbor luze bat hartu zuten, **ahari buru** gisa erabiltzeko, eta eginahalean jaurti zuten. Josu Zabaleta

6 ***ahari joko*** aharien arteko borroka, apustu egiteko jokatzen dena.

Zenbat denbora da, bada, **ahari jokoa** egiten zela igande arratsaldeetan? Pako Aristi

7 ***ahari kolpe*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Ur-hornidurarako ponpen bulkatze-hodietan jarritako balbula guztiak euste-balbulak izango dira, ura bat-batean etetean **ahari-kolpeak**, handiagoak edo txikiagoak, sortzen baitira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ahari kolpea jasan dezakeen garraio hodiaren luzera nabarmen txikitzea lehenengo helburua izango litzateke. Luzeraren murrizpena nabariagoa izango da oreka tximinia zentral hidroelektrikoaren babes balbulatik zenbat eta gertuen egonda. ETC-entziklopedia

8 ***ahari motz*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Hori gertatuko ote zaio Espainiari? Euskal Herria eta Espainia beren adar armatuekin topeka dabiltzan bitartean, Kataluniako **ahari motzak** aharituko ote ditu ardiak? Nazio berria jaioko ote da artalde zaharretik hurrengo udaberrian? ETC-prentsa

9 ***ahari talka*** ahari jokoa.

Oilar borroka, ahari **talka**... Berria - Kirola

Ahari **talka** bat bezala izan da hegazkinaren kontra. Josu Zabaleta

Ahakarrak luze iraun lezake, baina baten batek geldiarazi du ahari-**talka**. Xabier Mendiguren Elizegi

10 ***ahari topeka*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Ahari-jokoa, ahari-talka edo **ahari-topeka** Euskal Herriko joko tradizionala, non bi artzainek prestatutako ahariak aurrez aurre jarri eta borrokari egiten dioten, apustu bat tarteko gehienetan. ETC-entziklopedia

Baserri munduari begiratu eta idi-dema batetik, **ahari topekatik** edota sagardotegi bateko zurrut girotik bertako istorioak, istorio unibertsalak kontatzen asmatu dute. ETC-prentsa

Hainbat dira taldeak lurralde horretan ere; Serer, Walof, Peal, Shongai, Bambara, Tuareg... eta euren arteko liskarrak **ahari topekak** bezalakoak izan dira eta dira. ETC-prentsa

Ez da ustekabekoa Bergarako frontoiko harmailetan edo Aiako idi-deman emakume bakarra ere ez ikustea, edota emakumeak gutxiengo izatea harri-jasotzea eta **ahari-**

topeka behatzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 ***berberiar ahari*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi)*

Berberiar aharia, "Ammotragus lervia" da bere izen zientifikoa, arrui izenaz ere ezaguna, Ammotragus generoko animalia da. ETC-entziklopedia

12 ***bildots ahari***

Bai bailiteke urrixkide eguneko otorduan **bildots aharikoa** jateko ohitura ezarri izatea elizak, Kristoren sexuarekin bat etor zedin, Exodoak dioen bezala. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahari akasgabea eramango (3); **ahari bakoitzeko** (4); **ahari bana eskaini** (9); **ahari bat ikusi** (3); **ahari eta urtebeteko** (8); **ahari guztiak** (3); **ahari hura** (4); **ahari larruzko beroki** (5); **ahari talka** (3); **gorriz tindaturiko ahari** (6); **lau ahari** (3); **tindaturiko ahari larruak** (3); **zekor eta ahari** (7)

ahariak eta akerrak (3)

ahariarekin zortzi kilo (5)

ahariaren adarrak (3)

---

ahariki *iz* ahariaren haragia.

Bere ondasuna, lautik hiru honetantxe zihoakion: eguneroko eltzekoa, behikia oparoago **aharikia** baino, zezinkia ia gauero, zartagineko lodia larunbat oro, dilistak ostiraletan, eta usakumeren bat igandetako goxagarri. Patxi Ezkiaga

Hartu **aharikia** -esan zion Txitxikovi-, ahari-saiheskia da, artobeltz-ahiarekin! Jose Morales

Handik gutxira, bakarrik ari da Pernando bazkaltzen, erbia eta **aharikia** sobran dauzkala. Koro Navarro

---

ahariko **1** *iz* ahari gaztea.

Bildotsa akatsik gabea, **aharikoa** eta urtekoa izan dadila, arkume edo ahantxume. Patziku Perurena

Nere ume denboran artantzu **aharikoa**, zikoroxta, alondoa eta holakoak izaten ziren endemas arakaitako. Patziku Perurena

Aharikoengana joan da, apartatzera. Alberto Barandiaren

Usakumeak bezala sartuak zeuden beraietan **ahariko** osoak ageri ere ez zirela.· Bai bailiteke urrixkide eguneko otorduan bildots **aharikoa** jateko ohitura ezarri izatea elizak, Kristoren sexuarekin bat etor zedin, Exodoak dioen bezala. Patxi Ezkiaga

2 irud/hed

Edo neska-mutikoen ibilerak aipatzekoan ere, halatsu: "urruzak eta **aharikoak** bereiz dabiltza eskolan eta, ez dute deusen arriskurik". Patziku Perurena

---

aharito *(corpusean ez dago; ETCn* ***5*** *agerraldi)* **1** *iz* aharia.

Aharitoak ederrak ziren eta bata bestearen kontrako kolpeak itzelak. ETC-literatura, saiakera

Honezkero ondo dakizunez, Peru, gure amarekin eztabaidatzea topeka aritzea da; **aharitoen** antzera, azkena zeinek jo, hura irabazle. ETC-literatura, saiakera

2 irud/hed

Auzolana sustatu nahian ez baitugu ikusi giza **aharitoz** bete zaigula mundua, eta dena da gol eta dena da zaska. ETC-prentsa

---

aharra *iz* errieta, liskarra.

Hala ere ez zuen ahanztekoa eta inguma hitsak iratzarrarazten zizkion horrek, neskaren altzo beroan amildu aitzineko hilabeteetan, Panpili eta Le Routier ostatuko ohiko zuztarriekin euskal bestaz besta ibilia zen, pataska eta **aharra** xerkatzen. Itxaro Borda

Juan Etxamendi-k bazekien bortzehun urte hartan bazela **aharra** Frantzia eta Espainiaren arteko mugen gainetik, beste anitzek ez zekiten gauza. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gertatzen zen, hil-biziko **aharra** partida sutsuetarik landa, baten bat kartzelatua izatea. Itxaro Borda

Hargatik, **aharra** muskilak nabaritzen ziren, alaitasuna eta amodioa goresteko antolatu bestaren bihotzean. Itxaro Borda

Etsenplü ederra mündü hontako **aharra** güzien xüxentzeko. Herria

Puzkerra dena irria, putza dena **aharra**; Puzkerrak solasa eta putzak gerla. Patziku Perurena

---

aharrabide *(corpusean* ***aharra bide*** *soilik) iz* liskarbidea.

Budeatzaile hori da auzoekin edo bertze askorekin izaiten ahal diren eztabadak edo berdin etxetiar alokatzaileek izaiten ahal dituzten **aharra bideak** tribunaletarat joan gabe zerbeit gisaz kontseiluak emanez edo zerbeit argitasun emanez entseiatzen dena jendeak elgarrekin berriz bide xuxenean ezartzea. Herria

---

aharraika *adlag* liskarka.

Azken hilabete garratzak bizi izan zituzten: beti **aharraika**, patarraka, oldarka, hitzezko mehatxuei ihardukitzen. Itxaro Borda

---

aharrari *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi* ***1****) izond* liskartia.

Bizkitartean, pobretasunaren gatik, edo zuen jite **aharrariaren**, ageri etzen gogo gaixto bati aiher zen. ETC-literatura, saiakera

---

aharratu, aharra(tu), aharratzen **1** da *ad* liskartu.

Bainan besoak elgarri kontra eman ondoan hizkatu eta **aharratu** ziren. Herria

Aharratzen ziren Herriko Plazetan, erreboteak odolez ttakatzeraino. Itxaro Borda

Aharratzen baldin baziren, elkar hilka edo konpon zitezela, mutilak mutilekin eta kito! Itxaro Borda

Kamera numerikoa **aharratu** berri zirenengan finkatu zuen Graxik, diskretuki. Itxaro Borda

Peronek bazter utzitako peronista, nazionalista baino "pentsaera nazionaleko" gizona, egun ere aski **aharratzen** diren gogoetak dira Arturo Jauretche-ren zonceras argentinas direlakoak. Iñigo Aranbarri

2 (era burutua izenondo gisa; irud/hed)

Hertze **aharratuen** kolerari bide baten emaiterat osaba Joanikotek haiei guztiei oihuka adierazten zien bitartean egin zezatela egin beharrekoa lasai. Joan Mari Irigoien

---

aharrausi 1 *iz* nahi gabe egiten den aho zabaltzea, arnas hartze luze batez gertatzen dena.

-Gau on, Jimps -xuxurlatu zuen **aharrausi** bat ahoratuz-. Lopez de Arana

Zotin isil horiek **aharrausi** bihurtzen ziren hiru segundoan behin, ahoa are gehiago zabaltzen zutelarik. Karlos Zabala

Ontziak garbitzeari lotu orduko **aharrausi** bat ito du. Pello Lizarralde

Lola, **aharrausi** bat eskuarekin itotzeaz batera, bidaia inoiz ez amaitzea desio duela konturatu da. Patxi Iturritegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hain **aharrausi** handia izan zen, beste bi lanparatxoek ere **aharrausi** egin zuten, eta ahoak itxi orduko itzali ziren hirurak. Julen Gabiria

Goizeroko **aharrausi** nagi eta urratzailea. Jon Alonso

Azkenean, besoak indartsu zabaldu, **aharrausi** ozena egin, jauzi batez ohetik jaiki, eta zabuka joan zen traste zaratatsua isilaraztera. Migel Angel Mintegi

Ekitaldiko **aharrausi** bakarretakoak eragin zituen Ardanzaren hitzaldiak. Berria - Kirola

Hogeita sei edo hogeita zortzi liburu idatzi zituela, guztiak ere asperdura transzendentalezko **aharrausi** moduan zabaltzen direnak, dena eskas duen mundu baten aurrean. Josu Zabaleta

Liburua ohe ondoko mesanotxean utzi duzu, lo-minak batu eta azken **aharrausi** batek kandela erdi agortua itzali du. Xabier Paya

3 ***aharrausi egin***

Aharrausi egin zuen burua atzera eramanez. Lopez de Arana

Agatak ezin dio eutsi **aharrausi egiteari**, beso zabal, bataren eta bestearen aurrean. Itziar Otegi

Katuak **aharrausi egin** zuen. Pablo Sastre

Etsian **egin** zuen **aharrausi**, bihurkatu egin zen eta etzanda geratu zen begiak zabalik eta eskuak garondoaren azpian zituela, sabaira begira. Lopez de Arana

Bat-batean, baserriko atalburua zapaldu dueneko, **aharrausi egiten** du, edo nekaturik lotara doa, ahanztura bila, edo baita hirira itzultzeko arin prestatu ere. Xabier Amuriza

Batzuek **aharrausi egiten** dute, besteak zerurantz okertzen dira eta lazgarri oihukatzen duen ahoa zabaltzen dute. Koldo Izagirre

Goxo-goxo eta luze **egiten** dut **aharrausi**. Monika Etxebarria

Nagiak atera, eta **aharrausi** luzea **egin** zuen. Jose Morales

Aspaldian ez dut hain ongi lo egin -Egutxik **aharrausi** lotsati bat egin zuen-. Ibon Uribarri

Quenu espaloian agertu zen lipar batean, **aharrausi** txikiak **eginez**, goizeko haize hozkirriak guztiz esnatzen zuen bitartean. Karlos Zabala

Bidean, behin baino gehiagotan deitu zion bere buruari "eginbeharraren biktima", eta bere artean hori esaten zuen bakoitzean **aharrausi** luze eta sakona **egiten** zuen. Jose Morales

Weldon jaunak orrialdea pasatu eta ozenki **aharrausi egin** zuen. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aharrausi bat** (5); **aharrausi egin** (29); **aharrausi egin eta** (4); **aharrausi egin zuen** (17); **aharrausi eginez** (3); **aharrausi egiten** (4); **aharrausi luze** (3); **aharrausi luze eta** (3); **aharrausi luzea** (3); **aharrausi luzea egin** (3); **eta aharrausi** (7); **eta aharrausi egin** (4); **gero aharrausi** (3); **zuen aharrausi** (3)

---

aharrausika *adlag* aharrausi eginez.

Zerrenda infinituraino luzatzen zuela, jaiotze eta heriotza data zehatzak emanez jarduten zuen, inguruko entzuleak konbentzitzeko... edo aspertzeko, hobeto esanda, bere bakarrizketaren fruituei erreparatzen badiegu, guztiok **aharrausika** eta aho-zabalka. Joan Mari Irigoien

Joachimek beroegi dagoelako ez du gutunik idazten: uler nezakeen hori; bera ere, gu bezala, hamakan etzanda egonen duk, **aharrausika**, edota hilik.... honetaz ez pentsatzea hobe, nik uste. Joxe Austin Arrieta

Jansonek ere nagiak atera zituen eta **aharrausika** hasi zen. Jose Morales

Loguratuta dago, begiak ixten zaizkio, pot eginda dago, mutututa eta **aharrausika** ari da emakumea laztantzen ari den bitartean. Luis Elberdin

Eta guk, inori maite zaitut esan orduko, gure barne-muinak **aharrausika** jartzeko gai garenok? Anjel Lertxundi

Arkupeko espaloian ez zegoen inor, polizia bat baino ez, zerura begira **aharrausika**. Lopez de Arana

Lo eskasez **aharrausika**, bilkura goiz hartan, Plantsunera otoitz egitera abiatu ginen ahizpa eta amarekin. Itxaro Borda

Aharrausika eta marmarka, Weasley anaiak burumakur irten ziren, eta atzetik Harry. Iñaki Mendiguren

Odol zurbilaz gorrituriko ezpainetan, existentziaz blai, zorne argiaz blai eta **aharrausika** eta taupaka dauden ezpainen artean, begiak bezala malkotan dauden ezpain busti azukredunen artean. Monika Etxebarria

Irakurtzen amaitu gabeko liburu baten aurrean **aharrausika**, zain, goi-gizarteko bisitari asmotsuren bat noiz etorriko ote zaion. Jose Morales

Gero, **aharrausika**, gorputza atzerantz bota zuen bere aulki birakarian. Lopez de Arana

Estropezuka igo ziren, **aharrausika**. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aharrausika ari** (4); **aharrausika eta** (8); **aharrausika hasi** (7); **aharrausika hasi zen** (5); **eta aharrausika** (7)

---

aharrausikatu, aharrausika(tu), aharrausikatzen du *ad* aharrausi egin.

- **aharrausikatu** zuen lanean zinpurtzen ziren kideen gaizkizana susmatu ez bailuan. Itxaro Borda

---

aharrausilari *izond* aharrausi egiten duena.

Bide hori hartzen ausartzen zirenak berehala iritsiko ziren Oihan Itzaltsura, Dwimorbergen oinaldera, harrizko pilarearen mehatxuaren eta ate debekatuaren itzal **aharrausilariaren** aurrera. Agustin Otsoa

---

aharrosi ik **aharrausi**.

---

ahartzartz *iz* aharia.

Baina beste askotan, hizki batzuk hasieran edo bukaeran gaineratzen zaizkio errepikapenari: **ahartzartz**, babarrun, banana, furfuria, gogor, kakalardo, institutu, kikil, kinkina, papar, pitxitxi, txantxangorri, txotxongilo... Iñaki Arranz

---

ahatara *iz* ahotara, ahamena.

Ahatara bakoitzean euskalduntzen ninduen, ene onanismo gastronomikoaren bizio ahalkegarria azaltzen nion neskari, armairuetan ikastolako atorrak eta Nafarroa Oinez 95eko kirol galtza pareak bilatzen nizkiola. Itxaro Borda

Ahatara bakoitzean euskalduntzen ninduen, ene onanismo gastronomikoaren bizio ahalkegarria azaltzen nion neskari, armairuetan ikastolako atorrak eta Nafarroa Oinez 95eko kirol galtza pareak bilatzen nizkiola. Itxaro Borda

---

ahataraka *adlag* ahamenka.

Gasna, naka-naka irenstean, edozein sukalde ilunetan, lur azaleko nomada guztiekin, **ahataraka** haurridetzen naiz. Itxaro Borda

---

ahate 1 *iz* hegazti palmipedoa, mokoa horia eta zapala, hankak laburrak eta hegoak luzeak eta muturdunak dituena*(Anas* familia). ik **paita**.

Gero, goizero, guk aldegin eta berehala, atsoak etortzen ziren gure etxaldera, saskietan **ahate**, uroilo eta txita hilak ekarriz, eta hildako bakoitzaren truke amak bizi bana ematen zien. Koldo Biguri

Kanpoan krazkaka ari zen etxeko **ahate** bakarra. Koro Navarro

Zoko batean uzkurturiko **ahate** bat ferekatu zuen, hanka bat hautsia zeukan. Karlos Zabala

Ez duzu jakingo nora joaten diren **ahate** horiek aintzira izozten denean, ezta? Bernardo Atxaga

Garbitzen hasi zen jenerala, ufaka eta ziliportaka, **ahate** baten antzera. Jose Morales

Ahate batek karranka egin zuen zerritegi hutseko askatik aterata. Koro Navarro

Ahateak kua-kua..../... Ahatekumeek kua-kua. Iñaki Arranz

Ahatea eta ahatekumeak kua-kuaka. Iñaki Arranz

Ahateak karrankaz. Itxaro Borda

Donald **ahatearen** osabak esaten zuen aipu bat ekarri zuen akordura, guztiz aipu jostaria: [...]. Karlos Linazasoro

-Egun on! -egin nuen oihu, **ahateen** ahots sudurkaria imitatuz. Juan Kruz Igerabide

Hegaztien birusaren H5 motak ez die, normalean, **ahateei** horren erraz erasaten. Berria - Gaiak

Bi uso, iduneko berde metalikoa eta koralezko hankak zituztenak, Elleneren bidetik baztertu ziren **ahateen** ibilkeraz. Lopez de Arana

2 (izenlagunekin)

Parkeko urmaelean hiru beltxarga zuri, polliki igeri, eta **ahate** arrunt mordoxka bat. Txillardegi

Saint Laurent-go ura zazpi gradutan da; **ahate** basak usu eta baleak noiztenka ikusten dituzte. Herria

Bratislava hiria Txekoslovakiako **ahate** itsusia izan da historikoki, baina, Txekiak bezala, zisne bihurtu nahi du. Berria - Mundua

Ni ere gelako **ahate** itsusitzat hartu ninduten umetan ikaskideek, hankokerra nintzelako. Joan Mari Irigoien

Azen ontzeko, batto arrunt mari-kutzu, besteak berriz iduri **ahate** mutua. Janbattitt Dirassar

Ahate mutuak bezalaxe gelditu behar izan du, ezpainak dar-dar. Koldo Izagirre

Ahate beltz papo argiak zirristaka ur gainetik. Aurelia Arkotxa

Ahate zuri baten arrautza eder bat. Juan Kruz Igerabide

Amak buruari eragin eta **ahate** hilen truke **ahate** biziak ematen jarraitzen zuen. Koldo Biguri

-Gaur zer nahi duzu, jauna: Long Island-eko **ahate** errea ala Filadelfiako kapoi errea? Lopez de Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esan liteke, merkatuan erruz gailentzen ari diren paté eta batez ere foagras klase frantses guziak, aintzinako **ahate**-gibel piko idorrez gozatu haien kopia txarrak baino ez direla. Patziku Perurena

Eztizko opilak eta **ahate** lepo beteak egiten dituzten amona marmartien mundu hau. Felipe Juaristi

Wotherspoon Jeneralak, Army War Collegeko presidenteak, babuinokume **"ahate**-sudur" bat zeukan, oso argia baina ez oso itxurosoa. Xabier Olarra

Orain jarrita gauden harri honetantxe, gaurkoa bezalako gau eder batez, Mila lamia eserita zegoan, soineko zuria lepotik orkatiletaraino luze eta **ahate** oinak agerian. Aitor Arana

Lau **ahate**-arrautzaren gainean oilaloka bat ipintzen zuela, haien txitatzeko asmotan. Joan Mari Irigoien

Juvenalia, arropak erantzi eta, ohean sartu zen eta han agondurik, burua **ahate** lumazko burkoen gainean jarririk, biolina jotzen hasi zen, ordu arte ikasitakoa saiatzen. Felipe Juaristi

Baziren indioilo luma luze beltzak eta antzara luma zuri lauak, gazteei belarrietan kilimak egiten zizkietenak, ohatzean biratzen zirenean; baziren **ahate** lumatxak, non hondoratzen baitziren kotoiaren gainean bezala, eta oilo luma arinak, urre kolorekoak. Karlos Zabala

Ontziaren lorratzak zipriztinez betetzen zituen Volgaren ibai bazterrak, eta **ahate** saldoak altxatzen ziren handik iheska, karranka g orgarriak eginez. Karlos Zabala

Urmaelean **ahate**-multzo bat dabil igerian, lasai-lasai. Oskar Arana

Ahate-ama urmaeleko uraren gainean nabigatzen, bularra harrotasunez hanturik. Oskar Arana

Ahate espezie askok jaten dute Lemna Minor ur dilista, biologoen arabera. Berria - Gaiak

Baratzean aritzen da lanean; nekatzen denean, urmaelaren ondoan esertzen da, **ahate**-familiaren joan-etorriei begira. Oskar Arana

Eguberriei buruzko gogoeta gozoetan erabat murgilduta zegoela, Mr. Zucher ikusi zuen sepia-koloreko laino apartsu batean, **ahate**-ibilkeraz, ate birakarietatik irteten. Lopez de Arana

Hazi ahala, osabaren **ahate**-haztegiko zurezko atean labanarekin bere altuera koskaz koska nola handitzen zen markatzearen antzeko zerbait. Harkaitz Cano

Suediako ekialdeko Oskarshamm hiritik gertuko **ahate** etxalde batean aurkitu dute birusa. Berria - Gaiak

Igande aratsaldean, **ahate** jokoa; ondotik aizkolari, orga-joko eta harri altxatzaile. Herria

4 *ahate arlekin* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ahate arlekin, Histrionicus histrionicus. ETC-entziklopedia

5 *ahate arrunt*

Parkeko urmaelean hiru beltxarga zuri, polliki igeri, eta **ahate arrunt** mordoxka bat. Txillardegi

6 *ahate bularki* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Hona menua: bieira; patata errosetak labean, foie grasarekin eta izozkiarekin; **ahate bularkia** oporto erara; barazkiz betetako legatza; turroi krema eta amonaren flana. ETC-prentsa

Bien bitartean, hartu zartagina, eta erregosi **ahate bularkiak**, ahate urdaiazpikoa, arandoiak, sagar zatiak eta pinaziak. ETC-prentsa

7 *ahate buruzuri* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Penintsulako **ahate buruzuriaren** kasua argigarria da. ETC-prentsa

Ahate buruzuria ("Oxyura leucocephala") Anatidae familiaren ahate ez-domestikoa da. ETC-entziklopedia

8 *ahate buztanluze* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Ezagutu izan den **ahate buztanluze** zaharrenak 27 urte eta bost hilabete hartu zituen, Herbeheretako ahate bat izan zen. ETC-entziklopedia

9 *ahate buztanzuri* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ahate buztanzuri Oxyura leucocephala. ETC-entziklopedia

10 *ahate gibel*

Aintzinako ahate-**gibel** piko idorrez gozatu haien kopia txarrak. Patziku Perurena

Ahatekiak, ahate **gibel** gizenak eta antzarak ekoizten dituzten etxalde ugari dago. Berria - Ekonomia

Ezti-ontziak, arrautzak, antzara- eta ahate-**gibelak,** oilaskoak. Itxaro Borda

11 *ahate gorrizta* *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Ahate gorrizta ("Netta rufina") "anatidae" familiaren ahate ez-domestikoa da. ETC-entziklopedia

Besteak beste, murgil handia, lertxun hauskara, ahate mokozabala, **ahate gorrizta**, murgilari arrunta, kopetazuri arrunta, ubarroi handia, basahatea eta uroilo arrunta. ETC-prentsa

Udan, habiagintzako zonak dira hegazti akuatikoentzat; bereziki, galzorian dauden bi espezierentzat: murgilari burugorria eta **ahate gorrizta**. ETC-literatura, saiakera

Kaletik kilometro bat eskasera, hiriaren erdian ikusi zituen: txilinporta txikiak, koartzak, murgilari arruntak, **ahate gorriztak** eta basahateak, kopetazuri arruntak, antzara hankagorriztak eta indiar antzarak, eta batik bat belabeltzak. ETC-literatura, saiakera

12 *ahate herdoiltsu* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Espezie inbaditzaileen adibide dira: zebra-muskuilua, **ahate herdoiltsua**, amerikar bisoia, ur-ipurtatsa, ibai-karramarro gorria, Niloko perka, "Caulerpa taxifolia", "Senecio inaequidens", "Boiga irregularis" sugea, "Achatina fulica" barraskiloa eta inurri eroa. ETC-entziklopedia

13 *ahate ilun* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Aintziran, **ahate ilunen** piko arrosak. ETC-prentsa

Ahate iluna ("Anas rubripes") Anatidae familiaren ahate ez-domestikoa da. ETC-entziklopedia

14 *ahate joko*

Igandez, ezkila berriaren estreinaldia eguerditan eta **ahate jokoa** aratsaldean. Herria

Gaia zabalduz, Pierre Sabalo mintzo da ere artzain xakur lehiaketa horietaz, antzara eta **ahate-jokoaz** bai eta arraularien estropadetaz. Herria

Aratsaldean, **ahate jokoa**. Herria

15 *ahate mokozabal* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Aldiz noizean behin umatu izan dute ubarroi handiek, **ahate mokozabalek** eta murgilariek. ETC-prentsa

Besteak beste, murgil handia, lertxun hauskara, **ahate mokozabala**, ahate gorrizta, murgilari arrunta, kopetazuri arrunta, ubarroi handia, basahatea eta uroilo arrunta. ETC-prentsa

Ahate mokozabal "Anas clypeata". ETC-entziklopedia

16 *ahate musketadun* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ahate musketadunak eta indioilarrak ez dira bizi saldo izugarri handitan, eta ez dira espezie maitagarriak (arkume gazteak bezala), gurekin harreman fisiko handia dutenak. ETC-literatura, saiakera

17 *ahate papar* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Zumarragako Ezkiotarra jatetxeak, berriz, **ahate paparra** prestatuko du, masusta gorri eta basoko fruitu saltsarekin. ETC-prentsa

Zehazki, Montoriko ekoizle baten **ahate paparrak** edo herak, axoa eta lur sagarrak, Mitikile eta Irabarneko ardi eta behi gasnak eta etxeko bixkotxa gozatzeko aukerarik izango du jendeak. ETC-prentsa

14 saltoki izango ditu Seber Altubeko hileroko azokak (09: 00 -14: 00), hiru berri tarteko: "Etorriko da Iparraldetik ahate deribatuekin (pateak, **ahate-paparrak**, konñteak... eta halako gauza gozoekin) Ortzaizetik (Behe Nafarroa) Arnabar baserria. ETC-prentsa

Dioenez, duela hogei bat urtera arte ez zen **ahate paparrik** jaten, baina ohartu zirenetik ona dela, arazo bihurtu da: "Baserritar asko Landesetan, Biarnon Okzitania, eta Euskal Herrian ere, hasi dira denak ahateak egiten. ETC-prentsa

18 *ahate txistulari* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Ahate txistularia ("Mareca penelope", aurrez "Anas penelope") Anatidae familiaren ahate ez-domestikoa da. ETC-entziklopedia

Eta, ibaiari esker, hegazti migratzaile askoren bisita jasotzen du urmaelean, **ahate txistulariarena** edo zertzeta arruntarena, esaterako. ETC-prentsa

19 *amerikar ahate txistulari* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Amerikar ahate txistularia ("Anas americana") Anatidae familiaren ahate ez-domestikoa da. ETC-entziklopedia

20 *ipar-ahate* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Ipar-ahatea ("Anas strepera") "anatidae" familiaren ahate ez-domestikoa da. Udan iparraldeko Europan, Asian eta Ipar Amerikan bizi da eta neguan hegoalderantz migratzen du, orduan ikusten da Araba eta Nafarroako hezegunetan. ETC-entziklopedia

Aztorea edo **ipar-ahatea** bazina eta saldoa zerutik ikusi ahal izango bazenu, elurraren gainean bigunki hegaldatzen den gaza bat iruditu litzaizuke, ez laino bat baino trinkoagoa. ETC-literatura, saiakera

Bisita horietan murgil handiak, kopetazuri arruntak, **ipar-ahate** urdinak eta zertzetak ikus daitezke, besteak beste. ETC-prentsa

Ipar ahatea. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahate bat** (11); **ahate baten** (4); **ahate besta** (4); **ahate eta** (5); **ahate gibel** (7); **ahate gibela** (3); **ahate itsusia** (4); **ahate jokoa** (6); **ahatea bezala** (3); **ahateak eta** (6); **ahateak eta antzarak** (3); **edo ahate** (3); **eta ahate** (15); **eta ahateak** (7); **eta ahateek** (3)

---

ahatebeltz *(corpusean ez dago; ETCn **116** agerraldi)* **1** *iz* Melanitta generoko itsas ahatea.

Ahatebeltz ("Melanitta") Anatidae familiako genero baten izen arrunta da, Ipar Hemisferion bizi dena. ETC-entziklopedia

Bertan, hegazti babestu asko aurki daiteke; hala nola, borrokalariak, istingor arruntak, [...] **ahatebeltzak**, beltxarga oihulariak, zerra txikiak eta antzara hankagorriztak, hankahoriak, muturzuriak eta nanoak. ETC-entziklopedia

2 *ahatebeltz arrunt* *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi)*

Ahatebeltz arrunta ("Melanitta nigra") "anatidae" familiaren ahate ez-domestikoa da. ETC-entziklopedia

Aintziretan ordea izotz-ahatea, zertzeta arrunta, **ahatebeltz arrunta**, mendebal-txori mokomehe, borrokalaria, temminck txirria, bernagorri arrunta. ETC-entziklopedia

Gainera, hamazazpi ur-hegazti espezie desberdin aurki daitezke aintziretan, haien artean, **ahatebeltz arrunt** eta ahatebeltz hegazuriak, beltxarga oihulariak, izotz-ahateak... ETC-entziklopedia

3 *ahatebeltz hegazuri* *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

Ahatebeltz hegazuria ("Melanitta fusca") "anatidae" familiaren ahate ez-domestikoa da. ETC-entziklopedia

Hala nola, txirri antzeko hegaztiak (urre-txirri arrunt urre txirri arruntak esaterako), borrokalariak, kuliska pikartak, zingira-hontzak, mirotz zuriak, Eskandinaviako lagopodo ospetsuak, ahatebeltz arrunt ahatebeltzak, **ahatebeltz hegazuriak**, murgilari handiak, zerra txikiak, hego mugimendu motzak egiten dituzten belatz txikiak eta arrano beltzak. ETC-entziklopedia

Azpimarragarria da Urdaibain Espainian espezie oso arrarotzat hartzen diren hegaztiak agertu ohi direla, adibidez, branta musubeltza, eider arrunta, **ahatebeltz hegazuria**, izotz-ahatea, beltxarga oihularia edo branta musuzuria. ETC-entziklopedia

4 *ahatebeltz kopetazuri* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ahatebeltz kopetazuri ("Melanitta perspicillata") (Linnaeus, 1758). ETC-entziklopedia

---

ahateki *iz* ahate okela.

12.30-13.00: Bazkaria (Salda, arraina, **ahatekia**, ilhar biribilak, entsalada, ardi gasna, bixkotxa, kafea, ondokoa, arnoa...) bertsulari, musikari eta kantariekin. Herria

Ahatekia, arrozarekin eta barazkiekin. Eskarne Mujika

Ahatekiak, ahate gibel gizenak eta antzarak ekoizten dituzten etxalde ugari dago. Berria - Ekonomia

Nabarrenkoxeko gosean, Arrosen eta haren kapitainen mahaitik ere aspaldidanik desagertuak zirenak ahoratuak nituen Bidaxuneko sukaldean: eperrak, izokina, **ahatekia** ... Aingeru Epaltza

---

ahatekume *iz* ahatearen umea.

Eta guztia ere, egoeraren baldintzak, azken buruan giza haur bat ager dadin mundura, eta ez **ahatekume** bat, jirafakume bat edo tximeletakume bat. Juan Garzia

Indioilar galantak ere ikusi ditut, eta ahateak (**ahatekume** gaxteak kaioletan preso, eta beste batzuk errukirik gabe hanketatik elkarri estekaturik). Txillardegi

Ahatekume itsusi baten gogoetak izango da ganoragabekeria hauen izenburua. Josu Zabaleta

Janariak: kir, salda, legatza koskera, **ahatekume** fartzitu sahetsa jusarekin, kuiattoa esne opil gisa, lursagar xigortuekin, ardi gasna, gerezi erreximetarekin, melekeria, Irulegiko arno xuri eta gorria, kafe ondokoarekin. Herria

---

ahateme *iz* ahate emea.

- **Ahateme** arraultzeak dira. Ramuntxo Etxeberri

---

ahatettipi *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* ahatearen familiako hegaztia, hura baino txikiagoa *(Anas crecca)*.

Anas crecca izeneko hegazti espezieari, esaterako, '**ahatettipi**" esaten zaio Zuberoan, "ahatetxiki" Urola Kostaldean, Gorbeia inguruetan, Goierrin eta Bidasoa Garaian. ETC-prentsa

"**Ahatettipi**" (Zuberoan) ETC-entziklopedia

---

ahatetxo *iz adkor* ahatea.

Honela zen istorioa: Ahate eme batek eta beltxarga batek hiru **ahatetxo** izan zituzten. Josu Zabaleta

Ipuineko **ahatetxo** itsusiaren pareko sentitu izan naiz: traketsa, zabarra, ezgauza. Xabier Mendiguren Elizegi

---

ahatik *(**22** esaldi, liburu **1** eta **00** artikulutan; cf **haatik** **4.964** agerraldi) lok* halere, hala eta guztiz ere. ik **haatik**.

Ahatik, giroa segurua da; lehia azken muturreraino eraman nahi duenik ere izango da, baina gutxi horien gainetik giro ona, sanoa izango da nagusi. Berria - Kirola

Ahatik, frangotan bakarrik abiatuek atxemaiten dituzte lagunak, iduri baitute beti elgarrekin bizi izanak direla. Herria

Ahatik, hiriaren hegoaldean dauden auzuneetan, Al Shuhada, Al Julan eta Sinaan, borroka gogorrak izan ziren atzo. Berria - Mundua

Ahatik "España, España" eskatu dutenean nik ezetz. Edorta Jimenez

Gero **ahatik** komediak, ostalerrak prestatu aixturrekin expartinak berritz beren berri hartarat ekartzeko etxerat sartu aintzin. Herria

Nola obratuko diren, hori **ahatik** besterik da. Herria

Ikastaldi hori Frantsesenia laborantza lizeoan iraganen da, ateak denei idekiak dira, **ahatik** 12 pertsonei mugatua izanen da. Herria

Dena den, aurtengo lanik haundiena kabalkada dela **ahatik** ez da dudarik. Herria

Dalit abantailatua **ahatik**. Herria

---

ahatsar *izlag/iz* Ahatsakoa, Ahatsari dagokiona; Ahatsako biztanlea.

Vincent Ithurbide 31 urteko **ahatsarra** han berean zendu da. Herria

---

ahatto *iz adkor* ahate txikia.

Lau ahate-arrautza txitatu zizkiona, bertze nonbait erran dizudan bezala, eta nola oiloak eta **ahattoek** elkar ongi hartzen zuten, oiloak **ahattoak** bere kumetzat balitu bezala, eta **ahattoek** oiloa amatzat. Joan Mari Irigoien

Jakin nahi nuke nola doan zure esperimentua eta zertan akabatzen duten oiloaren babesean hazi **ahattoek**, paparaka edo kokorozka. Joan Mari Irigoien

---

ahatxe ik **aratxe**.

---

ahatzarazi, ahatzararz(i), ahatzarazten *(orobat **ahazarazi**)* du *ad* ahaztera behartu.

Besta giroak ez dü **ahatzarazi** behar 20 urtez eraman indarrak, jarraiki behar direla eüskararen berriz esküratzeko Xiberoan. Herria

Sohütarrak **ahatzarazi** gabe, ontsa erauntsi düe arizaleek, eta bereziki süjetak, bai joküan, bai botzen erabiltean, botz handien ükeitea bezain balios beita oraiko sonoekin. Herria

Kültür aberats bat bizi bada Xiberoan, ez deikü horrek **ahatzarazi** behar, eüskararen egoera nolakoa den "Gazteetan, ehüneko 5 a baizik da oso elebidüna da". Herria

Jo aintzina züek ere, zihauren gisan, azkena beita üsüan ederrena, aitzinetikoak **ahatzaraziz** hein betetan bederen, emozioneari esker, zirrara delarik pastoralaren giltza. Herria

Baina ikaste faltatik (edo ahaztetik) zetorkion zailtasuna, gure irudiko: txikitandik eta luzaroan itsu izanak, batzuetan, koloreak eta beren izenak lotzea galarazten zion edo lehenago berak egindako loturaren batzuk **ahazarazi** zizkion. Xabier Olarra

---

ahatze, **ahatzen** du *ad* ahaztu.

Ez dütügü **ahatze** behar lagüntzaile güziak, estüdio berrien eraikitzen ari izan diren 50 bat lagün, leküko ofizialeen aholkü eta lagüntzarekin. Herria

Aspaldian **ahatzerik** dizügü Mauleko egoitza xahar... Itxaro Borda

---

ahausi ik **adausi**.

---

ahausika ik **adausika**.

---

ahazarazi ik **ahantzarazi**.

---

ahazdura ik **ahaztura**.

---

ahazgarri *iz/izond* ahanzgarria.

Halako bolada zerrietan, lana duk **ahanzgarri** hoberena. Aingeru Epaltza

Musika, min **ahanzgarri**. Felipe Juaristi

Aire girotuaren ferekak goizaldearekin eztitu gabeko kanpoko tenperatura itogarriaren **ahanzgarri** ziren, behiala hainbertze izerdi isuritako tokian. Aingeru Epaltza

Snapek guztiak urduri jartzen zituen, kokotera arnasa botatzen baitzien Edabe **Ahazgarri** bat nola egin gogoratu nahian ari ziren bitartean. Iñaki Mendiguren

---

ahazkor *izond* gauzez erraz ahazten dena, ahazteko joera duena. ik **ahanzkor**; **atzenkor**. *Besteri egiten dien gaitzaren zein ahazkorrak diren!*

---

ahazkortasun *iz* ahazkorra denaren nolakotasuna.

Ahazkortasun [...]: Jainkoaren dohain bat, zordunei ematen zaiena, zuhurtzia-falta berdintzeko. Xabier Olarra

Ezin nuen zure **ahazkortasuna** ulertu, zeren, neurri eta etenik gabe zurekiko ardura hartzearen hartzeaz, zuk ere nigan sarri pentsatu eta nire zain egon behar zenuelako ilusioa izaten bainuen. Eduardo Matauko

---

ahazmen *iz* ahaztea, ahanztura.

Bata **ahazmena** da, atzeko guztia ezabatu eta ezer ez uztea; orainaren eta iraganaren arteko distantzia jan eta erdibideko puntu guztiak ezabatzea, iragana orain eta oraina iragan bihur daitezen. Felipe Juaristi

Oroimenik gabe bizitzera ere ohitzen da, baina ez da ohitzen **ahazmenik** gabe bizitzera. Felipe Juaristi

-Zoaz, lagun, ikasi ezazu zer den **ahazmena**, hori nahi baduzu, baina ez ahaztu sekula santan gutarra zarenik. Felipe Juaristi

Denbora eta **ahazmena** direla diote hor etsigarri hoberenak, baina denbora eta **ahazmena** ez daude inon, ez daude inoren eskura. Iñaki Segurola

Hiltzen dena gorputzez hiltzen den, edo geure **ahazmenak** hiltzen duen. Xabier Etxabe

Gogoramenak **ahazmena** dakar berarekin, eta **ahazmenak** gogoramena, gauak ez luke zentzurik egunik ez balego, eta egunak gauaren beharra du. Felipe Juaristi

Neskak orduantxe jakin zuen ezen, gizonaren ustetan, izena -arropa zaharren gisara- bertan behera utzi, eta **ahazmenaren** hilobietan zokoratu beharreko zerbait zela. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ahazmena** (5)

---

ahazmendura *iz* ahaztea, ahanztura.

Berehala, goiz hartako **ahazmenduraz** ohartuta, eskua kokotsera eraman zuen: bizarra egin gabe zeukan. Migel Angel Mintegi

---

ahaztarazi, ahaztaraz, ahaztarazten du *ad* ahantzarazi.

Egin behar zuen berrikuspen-lan guztiak bere tristura **ahaztarazten** zion. Iñaki Mendiguren

---

ahazte *iz* zerbaiten edo norbaiten oroitzapena galtzea; zerbait edo norbait jada gogoan ez edukitzea.

Halako eraldaketak, engrama neural oso konplexuen arteko jauziak, "oroitze" eta **"ahazte"** terminoetan bizi ohi dira. Xabier Olarra

Gauzei beren alde onetik begiratuz, bururatu zitzaion **ahazte** edo hutsune haiek gehiago gertatzen zitzaizkiola utzikeriagatik buru ahalmenak galtzeagatik baino. Joxemari Iturralde

Aldaketa fonetikoaren beste ondorio bat da **ahazte** hori: hitz baten zati desberdinak, haren balioa finkatzen laguntzen zutenak, ezin analiza daitezke dagoeneko, ezin zatika daitekeen gorputz bilakatu delako hitz hori. Isabel Arrigain

Fenomeno batean oroipena eta bestean **ahaztea** dira azterketaren oinarria osatzen dutena, eta desberdintasun hori guztiz garrantzizkoa da. Isabel Arrigain

Iruzurra edo **ahaztea** edo intsumisioa, gauza da ordaindu ez, eta, agindu bezala, besoa moztu zietela sendi-buruei, betiko oroimen basati gisa. Karlos Linazasoro

Ahazte errazekoa. Jokin Muñoz

Zuhurtzia delako horri "nahasmen" izena hobeto letorkioke, eta Probidentzia delakoari, hobeto "on guztien **ahazte** kaltegarria". Askoren artean

---

ahazteke *adlag* ahaztu gabe.

Gauza zen hango bizilagunen ohiturak xehetasunik **ahazteke** kontatzeko, ondo edo gaizki moldatzen ziren, nola garbitzen zuten beren burua, zer jaten zuten afaltzeko; bisitan zein zihoazkien ere bazekien. Karlos Zabala

Ostiralean Wall Streeten izandako galerak **ahazteke** zeudela, Ekialde Hurbileko tenperatura politikoak gora egin du, euroa eta urrea indartuta (dolarra ahulduta, alegia). Berria - Ekonomia

ahaztezin 1 *izond* ezin ahaztuzkoa.

Haietako batzuek izen **ahaztezina** utzi dute, beraietaz gorespenez hitz egin dadin. Elizen arteko biblia

Bati-Gol goitizena hartu zuen argentinarrak, eta Rui Costa portugaldarrarekin bikote **ahaztezina** osatu zuen Artemio Francchi futbol zelaian. Berria - Kirola

Dama noble eta ausarta zara, eta laguntzarik gabe zureganatu duzu aintza **ahaztezina**. Agustin Otsoa

Usain **ahaztezina** zerien haien orrialdeei, eta orri bakoitza pasatzean kirats apal horrek hotzikara eragiten zidan bizkarrean eta txoratua uzten. Karlos Zabala

Zenbat gau igaro ote ditugu elkarrekin, loak garaitu arte solasean, Sevillako hotel dekadente batean elkar maitatzen, zure lagunentzako afari **ahaztezin** bat prestatzen saiatuz, Lorarekin batera kometak hegaldatzen Hondarribiko hondartzan. Eider Rodriguez

Bada zerbait ere betierekoa eta **ahaztezina** horretan, bizitza bera bezain kilikagarria den zer edo zer: etengabeko joan-etorriak, irekitzen eta ixten diren ateen takatekoak, plater-hotsa, gonbidatuen elkarrizketen marmar gero eta ozenagoa iskanbila bihurtua azkenean, guztia ere bizitzaren edertasunaren eta zoragarritasunaren adierazgarri. Ander Irizar

Graziazko une **ahaztezinak**, loriazko aldi labur-laburrak, ezusteko mirariak. Oskar Arana

Eta zuen gain botako ditudan lotsa eta desohorea sekulakoak izango dira, inoiz ere **ahaztezinak**. Elizen arteko biblia

Alegia, zera bat dela hau, zigor anker bat, Noeren pasarte haren antzeko zerbait, eskarmentu **ahaztezin** bat. Karlos Linazasoro

Arazo guztiok kontrapuntu moduko bat egiten diote jatorrietako oroitzapen **ahaztezinari**. Askoren artean

Zinez uste baitut horixe espero zuela hark gugandik: loriazko azken segundo **ahaztezin** batzuk, betikotasuneranzko bidaia betiere ezezagunean lagungarri izango zituenak. Karlos Linazasoro

Ahaztezina da, halaber, Kafkaren *Itxuraldaketa*-ko lehenengo esaldia: "Goiz batean, amets nahasi baten ondotik itzartzean, Gergor Samsak, ohean zetzala, bere burua intsektu izugarri bat bihurtuta ikusi zuen", edo Melvilleren Moby Dick haren estreinakoa: "Call me Ishmael". Xabier Mendiguren Elizegi

Picos de Europa zeharkatuz egin genuen ibilaldi hura **ahaztezina** izan zen niretzat. Juan Kruz Igerabide

Gerra Zibilean Bilbotik itsasontzian ihes eginiko "gerrako haurren" irudiak **ahaztezinak** ziren. Joseba Zulaika

Doluak, aldiz, Donibane Gurutzekoaren hitzak hurbil sentitzen ditu, Imanolek bere euskal desterrutik era **ahaztezinean** kantatuak: "Atzetik oska nuzu, ta Zuk neri aldegin". Joseba Zulaika

2 (izen gisa)

Alde batetik, argi dago, urtea pasa da eta ez dugu zer ospaturik, injustiziak eta galerak ez baitira ospatzen; injustizia eta galeren aurrean, **ahaztezinari** mugarri bat jartzea baizik ez baita geratzen. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahaztezin bat (3); **ahaztezina da** (6); **ahaztezina izan** (10); **ahaztezina izan da** (6); **ahaztezina izan zen** (3); **bizipen ahaztezina** (3); **bizipen ahaztezina izan** (3); **eta ahaztezina** (4)

---

ahaztu, ahatz, ahazten **1** da/du/zaio *ad* zerbaiten edo norbaiten oroitzapena galdu; zerbait edo norbait jada gogoan ez eduki; zerbait oharkabean utzi edo galdu. ik **ahantzi**; **atzendu**.

Eta ez **ahaztu**, prentsaz aritu, baina batez ere Berria-n bertan egiten ditugun makurrez... Iñigo Aranbarri

Eskolan azaldu zieten, baina gauza horiek **ahaztu** egiten dira, azterketa osteko ogitartekoa irentsi orduko. Eider Rodriguez

Berehalaxe **ahaztu** zituen bere asmoak, eta ikasi ordez auzoko etxeetan ateratzen zen jendeari leihotik kataloxa batez begira egoten zen. Josu Zabaleta

Beste behin, etxe baten zenbakia **ahaztu** zuelarik, ateko aldabaren soinuagatik aurkitu zuen. Irene Aldasoro

Horren **ahazteko** gai izanen zinela uste izan duzu berriki arte. Xabier Montoia

Ez zaituztet **ahaztu**, ezta **ahaztuko** ere, lagunok. Edorta Jimenez

-Bedeinkatua izan bedi Jauna, nire nagusi Abrahanen Jainkoa, ez baititu **ahaztu** nire nagusiari dizkion onginahia eta leialtasuna. Jose Antonio Mujika

Ahaztu zitzaiona? Itxaro Borda

Indiara bazoaz, ez **ahaztu** linterna on bat eramaten. Gotzon Garate

Ahaztu egin zaio niri agur esatea. Urtzi Urrutikoetxea

Zenbait gauza eta pertsona **ahazteko** ere alda gaitezke hiriz. Harkaitz Cano

Thatcherrek **ahaztua** zuen Susie ez zela han izango bere zain. Lopez de Arana

Erderismos obra ospetsua, hamar urte geroago -1929an- argitaratua; **ahaztu** gabe, jakina, El acento vasco, hiru urte geroago plazaratuko dena. Patxi Altuna

-Ni ere primeran ibili naiz zurekin, eta ez dut **ahaztuko**, besteak beste, Monument Valleyn izan zenuen detailea. Patxi Zubizarreta

Askotan, izebari **ahaztu** egiten zitzaion eguzkia sartu aurretik arropa jasotzea, eta hantxe geratzen ziren zintzilik gure jantziak. Juan Kruz Igerabide

Amerikanoei **ahaztu** egiten zaizkizue egunak. Bernardo Atxaga

Bai, ene seme, har itzazu gogoan nire irakaspenak eta ez itzazu inoiz **ahaztu**. Jose Antonio Mujika

Ahaztu, mesedez, izan ditugun ulertuezinak, asteburu batez behintzat. Aitor Arana

Badakizu... adina joaten delarik **ahazten** duzu nola ziren, edo bestenez zuk, adina joan bezala, erematen duzu zure ikusmoldea. Menane Oxandabaratz

Eta Aliasi **ahaztu** egingo zaio hartaz sufritzea. Josu Zabaleta

Orduan inoiz **ahaztuko** ez dudan gauza polit bat egin zuen: gorputza nigana hurbildu eta musu eman zidan ahoan maitasunez. Aitor Arana

Ez ditut **ahaztu** nahi ere lan hau guztia gogoz bultzatu duten nire aurreko Eusebio Unzurrunzaga eta Telesforo Zuriarrain Ministro probintzialak. Askoren artean

Atseginaren bila jarduteko iratzartzen nintzen egunero: asmo hau buruan, beste guztia **ahazten** zitzaidan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Amak ez zuen **ahaztu** bizi zen artean. Matías Múgica

Begitarte gorrixka hura **ahazten** saiatu nintzen, baita lortu ere, ia sei orduko loa egin bainuen segidan, hain nengoen-eta akitua. Joxe Austin Arrieta

Gernikako irudiak **ahaztu** gura zituen aldez edo moldez. Lutxo Egia

Euskara kostatarraren handitasuna **ahaztuta** gelditu zen epe luze horretan, eta Gipuzkoan euskara suspertzeko gogoa piztu zenean, guztiz ahulduta zegoen haren indarra. Koldo Zuazo

Amerikara joan, eta aita, ama, judutasuna, Jainkoa **ahazten** zaizkie. Koro Navarro

Ezer ez zaigu berez **ahazten** eta horregatik, oroimena ez erabiliagatik, galdu da bera gure artean. Felipe Juaristi

Orduan, Helenak, belar-hauts bat bota zuen edontzietara, tristurak **ahazteko** belar-hautsa hain zuzen. Juan Kruz Igerabide

Inork ez gintuen deitzen, ordea, eta gizonari arretaz erreparatzeari lotu nintzaion, semearekikoak apur bat **ahaztuz**. Karlos Linazasoro

Horiez gain, ez genituzke **ahaztu** nahi ez Joan Karlos Alonso, ordu mordoa eman baititu eskaneatze lanetan ordenagailuan, eta ez Joxe Ertzibengoa. Patxi Ezkiaga

Badira kontu berriagoak noski, geure garaiko kartzelaldi honetakoak horietako asko, **ahaztuta**-edo eduki arren gomuta eske bezala sartzen zaizkigunak noizean behin solasgaira. Jokin Urain

Dena **ahazten** zitzaion. Koro Navarro

Ahaztuta dugu askotan, baina. Iñaki Arranz

Arestiko irekitasuna **ahaztua** zuela ematen zuen. Irene Aldasoro

Ahaztuko haiz, ikusiko duk. Anjel Lertxundi

Baina sekula **ahaztuko** ez zitzaidan ikasgai bat ikasi nuen nik: etekina atera behar niola naturak eman zidan dohai bakarrari: nire ipurdiari. Juan Martin Elexpuru

Ohi ez bezalako soineko bat ikusten zuenean, hura aztertzen jartzen zen, orduak eta orduak ematen zituen hari begira nobela bat irakurtzen ariko balitz bezala, eta denaz **ahazten** zen, baita bere buruaz ere. Fernando Rey

Horregatik saiatu zen aztertzen nola printzeak lortu, gehitu eta manten dezakeen boterea, **ahaztu** gabe bere agindupean eta legeak gordez nola aberastu daitekeen herria. Esteban Antxustegi

-Lehenago **ahaztuko** nuke zerua gure gainean dagoela eta lurra gure azpian - erantzun zion mutilak gogo gabe bezala, begiak lehendabizi uso koloreko zerura eta gero lurrera eramanez. Felipe Juaristi

Zizareak **ahaztu** egin nituen; amari begira jarri, eta galdetu nion: Juan Kruz Igerabide

Noizbait bidea **ahaztuko** banu, nondik natorren **ahaztuko** balitzait, beti izango nuke hari hori atzera egiteko. Jon Maia

Astindu ederra emango diat, sekula **ahaztuko** ez duana! Paddy Rekalde

"Lagunak" izan ziren, baina mundu hura **ahaztu** behar du. Sonia Gonzalez

Egundoko aukera bai, **ahaztu** barik hilabete bitan oporretan joatea ez dela erraza, ez eta norbera langabezian izanda ere. Edorta Jimenez

Hitz eman zenidan **ahaztu** egingo zenuela joan den asteazkenekoa. Mirentxu Larrañaga

Bigarren tribuan **ahaztu** egin zitzaien sua egiteko modua, eta tresnak bakarrik gorde zituzten, gurtze-objektu gisa. Jon Arretxe

Ahaztu egin dut frantsesa, ez ditut hitz guztiak ulertzen, zer ote da, esate baterako, le néant? Joseba Sarrionandia

Sofritu gabe ez dagoela jaiotzerik erakusten digu, "Sofritzeko jaioak gara" dotrina **ahazten** saiatzen ari garen une historikoan. Arantxa Iturbe

Aitak giltzak **ahaztuko** zituela pentsatu nuen. Juan Kruz Igerabide

Nola **ahaztu** kazetari batzuen eta ezkerreko intelektualen eldarnioak, beren ideologiak itsubidera ekarriak, arrazoimenari uko eta pentsamenduaz beste egitera hain lotsagarriro limurtuak? Juan Garzia

Ahaztu egiten dute komunikazioak zinezko maitaleak baino ez dituela onartzen bere klubean. Txema Ramirez de la Piscina

Sekula piztuko ez zuen zigarreta bideko hautsean zetzan, **ahazturik**. Alberto Ladron Arana

Ahaztu baino lehen, Eusebia izan da arrastian, ezagutzen ez nuen botika bat eskatu dit eta bihar etortzeko esan diot, nahiz eta domeka izan ostatuko atetik sartuta kasu egingo diozula. Josu Landa

- **Ahaztuak** dituzte denek haren zorrak -erantzun nion, eta nik ere barre egin nuen. Ander Irizar

Urteen buruan egoera hobetu eta dirudunak berriro artelanak erosten hasi zirenean, beste pintore batzuk omen zeuden modan, lehenagokoak **ahaztuta**. Xabier Montoia

Erabilgarria gerta dakieke Toynbee jaunaren Azterketa-ren lehenengo partea, jatorrizko nahiz laburturiko forman, irakurri eta neurri batean **ahaztu** dutenentzat. Iñaki Mendiguren

Ahaztea erabaki zuen. Fernando Morillo

2 (era burutua izenondo gisa)

Antzera izaten dira galduak denboraren poderioan giza oroitzapenak oro; ustekabeko une batean, ordea, argi izpi bat iritsi, eta orduan ikusten dugu aurpegi **ahaztu** berbera. Xabier Olarra

Haien artean baziren tamaina txikiko batzuk, azal beltzaranekoak, eta haien arbasoak, zalantzarik gabe, erregeak etorri aurreko Urte Ilunetan mendien itzalpean bizi ziren gizaki **ahaztuak** ziren. Agustin Otsoa

Neure garaian neuk ere eraman nuen, etxe honetako oinordeko guztiek bezala, erregeen gainbeheraren aurreko urte **ahaztuetatik** hasita, Mardilen aita Volondilek Rhûneko zelai urrunetan Arawko behi basatiak ehizatzen zituenetik. Agustin Otsoa

Hona non azaltzen den berriz ere sentipen **ahaztu** hau. Antton Olano

Lotsagabe eta irudikor, itxuraz izen eta gauzakirik ezdeusanak direnetatik abiatuz (liburuan zehar topatuko dituzun aza, Txomin, karakol, Juan edo putz besteak beste), istorio liluragarriak osatu eta historia puska **ahaztuak** berreskuratu ditu. Patziku Perurena

Liburu **ahaztua** zen, eta ordurako ez zen erraz topatzen, ezta liburutegietan ere. Jon Alonso

Milaka ale zeuden hango apaletan ezin estuago pilatuta -jada inprimatzen ez ziren hiztegiak nahiz best-seller **ahaztuak** edo larruzko azaleko liburuz osatutako Shakespeareren bildumak, zernahi- eta Tom etxean bezala egoten zen beti, paperezko mausoleo antzeko hartan, bazterrera utzitako liburu piloak gainbegiratzen zahar- eta hauts-usainen artean. Oskar Arana

Estherrek, eta ezizen **ahaztua** ahoskatu zuenarengan josiak. Xabier Montoia

Erraza da, baita bat amnesikoa ez bada ere, garaiko gorabeheren kontua galtzea, gaixo kronikoentzako erietxeetako pabilioi **ahaztuetan** .->05AtxB01¬14<-Garai hartako kazetariak, kostalderako bidean handik pasatzen zirenak edota, maizago, kirol gertakariren baten kariaz hurbildutakoak, "Gipuzkoa **ahaztuaz** " mintzo ziren beren kroniketan. Xabier Olarra

Haien artean baziren tamaina txikiko batzuk, azal beltzaranekoak, eta haien arbasoak, zalantzarik gabe, erregeak etorri aurreko Urte Ilunetan mendien itzalpean bizi ziren gizaki **ahaztuak** ziren. Agustin Otsoa

"Inperio austrohungariarraren urtekari **ahaztuetan** aipatzen da gure izena", dio azken Trottatarrak. Anjel Lertxundi

Arriagari buruz irakurri nuen artikulu batean, jenio **ahaztua** deitzen zion egileak. Berria - Kultura

dierazpen artistikoak izaten du batzuetan behintzat pertsona edo gertaera bidegabeki **ahaztuei** neurri batean behinik behin, berandu badarik ere, merezi duten oihartzuna berreskuratzen laguntzeko ahalmena eta dohaina. Berria - Kultura

Urte askotan Artizarra planeta " **ahaztua** " izan dela gaitzetsi dute egitasmoaren bultzatzaileek, eta lan handia dagoela. Berria - Gaiak

3 (adizlagunekin)

Hutsune handixkoa, aise **ahazteko**. Pello Zabala

Ezen gizadiak azkar **ahazten** baititu, Schumpeter-en hitzetan, "bere opera politikoetarako libretoak idazten dituztenen izenak". Iñaki Heras

Hain erraz **ahaztu** ote nuen bizitza osorako aulki batera josi ninduen putakumea? Alberto Ladron Arana

Aspaldi **ahaztua** nuen gertaera bat gogoratu zidaten bat-batean. Josu Zabaleta

Eta, gainera, segituan **ahaztu** zitzaien denei Eulogiorik bazenik ere eta mundu guztia Jexux deitzen hasi zitzaion mutikoari. Xabier Etxabe

Gainerakoan ez pentsatzeko semeaz erabat **ahaztuta** zegoenik; epaiketan egon zela, eta estatuko hotelera behin bisitan joan zitzaiola. Jon Alonso

Haserrea ziplo **ahaztua** zuen. Alberto Ladron Arana

Itoitzen eta Artozkin euren etxeko sua azken eguna arte piztu duten nafarrei, behintzat, nekez **ahaztuko** zaie haien gobernuaren izenean hondeamakinak bidali zizkien presidentearen izena. Edurne Elizondo

Geratzen ziren gainerakoak, bazirudien ezin zutela erabat **ahaztu** patrikan berrogeita hamar lira baino ez zutelako pentsamendua; eta beste berrehun edo hirurehunek keak bezala aldegin zietela jai hartan. Josu Zabaleta

Atzo Eto'oren txanda izan zen, eta ez ditu berehalakoan **ahaztuko** dimarraren laztanak. Berria - Kirola

4 ***ahaztera utzi***

Ikastolako haurrek etxe kurri egin dute, beren gisarat mozorroturik, leheneko ohitura ez **ahaztera uzteko**, ohartu gira Ikastolak bere uzta emaiten diela. Herria

5 ***ahaztua eduki***

Hartan buru-belarri sartuta zegoelarik, Crookshanksi buruz kexatzea ere **ahaztua zeukan**. Iñaki Mendiguren

Zuen helbidea edo herriaren izena galdetzen nionetan **ahaztua zeukala** erantzuten zidan, hurrengo baterako jakingo zuela ziur. Xabier Montoia

Erabat **ahaztua neukan**. Jesus Mari Mendizabal

Anita andregai zuen hamazazpi urtez geroz, eta bera larritu egiten zen neskaren aurpegia erdi **ahaztua zeukala** konturatzen zen bakoitzean. Bernardo Atxaga

Kasualitatea **ahaztua zeukanean** beste liburu bat erosi zuen: Victor Hugoren 'Miserableak', azalean Parisko Saint-Honoré kalea dakarrena, Camille Pissarrok margotua. Pako Aristi

Ia **ahaztua neukan** zein hortza aukeratu nuen ere ateratzeko. Patziku Perurena

Bi belaunaldi tan, ordea, ez zen belztasuna inondik agertu eta **ahaztua zeukaten** arbaso senegaldarraren oroitzapena. Hasier Etxeberria

Asebetea sortzen du gainera, norbaitek nonbait, zeuk ere **ahaztua zeneukan** bertso-sorta hura buruz kantatzen dizunean. Andoni Egaña

Ahaztua zeukan atzamarrek helduta zuten zigarroa eta txabusinan topatu zituen hura isiotzeko poxpoloak. Josu Landa

Valcornejako eta Herrerako bi egonaldietan batik bat olatuen arnasa orrotsu nekagaitza zer den **ahaztua neukan** . Txillardegi

Ah, **ahaztua zeukan** -dena ari zitzaion ahazten. Anton Garikano

6 *ahaztua egon*

Beste zerbitzu publiko bat: modu ulertezinean **ahaztua dagoen** teknika baten berri zabalduko dut. Karlos Zabala

Al-Gafiqiriren ospea eta memoria **ahaztua dago** ia, eta gogoratzen denean ere frankoek menperatu eta hil zutela gogoratzeko izaten da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ahantz ote daiteke neskatxa bere bitxiaz, andregaia bere ezkon-soinekoaz? Nire herria, berriz, **ahaztua dago** nitaz aspaldi luzean. Elizen arteko biblia

Aitarena, bego: geroztik hamar urte joanak, **ahaztua zegok** nolazpait... Txillardegi

Iragana irakur dezaket han, jada **ahaztua dagoena** aurkitu, baita orainaren seinaleak ulertu ere. Xabier Aranburu

Gertatu zenean oihartzun mediatiko handia izan zuen arren, gaur egun guztiz **ahaztua dago** Santa Liberdade filmak gogora dakarren bahiketa. Berria - Kultura

Eta egia esan, ikuskaria ez zen desegokia; izan ere, Jesus haurra askoren bihotzetan **ahaztua zegoen** ; baina, bere onginahiaren egitez eta bere zerbitzari Frantzisko santuaren bidez, berpiztu egin da bihotzetan eta jendearen oroimenean maitekiro txertatu. Askoren artean

Biblia hemezortzi liburukiz osatua balego, **ahaztua legoke** aspaldi. Koro Navarro

7 *ahaztuta eduki*

Ezagutzen zuen haren izena, baina **ahaztuta dauka** . Pablo Sastre

Nik, ordea, **ahaztuta neukan** zergatik bideratu genuen LHra eta zer adarretara. Joseba Urteaga

Beste gauza bat gogoratu nuen gainera, erdi **ahaztuta neukana** . Iban Zaldua

Ama, andrea eta seme-alabak direla-eta, **ahaztuta daukagu** amona: itzul gaitezen beronen baratzera. Xabier Mendiguren Elizegi

Hori ere **ahaztuta zeukan** gaur arte. Eider Rodriguez

Ez du gogoan iraganeko zoriona; izan zen baina ez da existitzen jada; erabat **ahaztuta dauka** ; ezin du, beraz, berriro gogora ekarri. Imanol Unzurrunzaga

Erabat **ahaztuta zeukan** kontu hura, istripuaren ondoren ez dago ipuinetarako. Iñaki Iñurrieta

Beharbada, aspaldiko kontua delako, **ahaztuta dauka** , gainditua. Paddy Rekalde

Halako batean, **ahaztuta zeuzkaten** gertakari batzuk gogoratzera behartu dituzte, eta, ordainetan, bortxatzaileak, lapurrak edo sasoi hartan soldaduskan izan zirela erantzun diete. Berria - Euskal Herria

Lurrarekin batera eguzkia inguratzen ari nintzen, eta izena **ahaztuta neukan** konstelazio baterantz mugitzen. Koro Navarro

Gainera, jatearena erdi **ahaztuta daukanez** , ez da premiazkoena. Sonia Gonzalez

Gurasoak eta jaiotetxea **ahaztuta dauzkat** aspalditik. Bernardo Atxaga

"Oraingo honetan ez diagu hutsik egingo", adibidez, edo "no problem, Jon; egun hartakoa **ahaztuta zeukaat** ". Jokin Muñoz

- Ene!, **ahaztuta neukan** ! Jose Morales

Ordura arte **ahaztuta edukitako** aulkiaren gainera eraman zituen begiak, baina han ere ez zen matrikularen arrastorik. Joxemari Urteaga

Baina **ahaztuta nindukaten** . Josu Zabaleta

Berpizkundeak **ahaztuta eduki** nahi izan baditu ere, garai hartako unibertsitateetako maisuak juduak eta islamiar erlijiokoak izan ziren nagusiki. Askoren artean

Ahaztuta zeukan neguko goizak zein hotzak izan litezkeen Ekialdeko Lurmuturreko goi herrietan. Oskar Arana

Ahaztuta zeukan , kasik, kontu hura. Fernando Morillo

8 *ahaztuta egon*

Ahaztuta nago zer eskatu nuen txanponak azkenez botatzean. Xabier Montoia

Erabat **ahaztuta nengoen** Violantez. Bernardo Atxaga

Eta neskekin ere tratu normala zeukaagu, nahiko jatorra eta hola; **ahaztuta zeudek** garai bateko moskeoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Tea zerbitzatu zuten egunero legez, eta guztiz **ahaztuta zeuden** ni bertan nintzela. Javi Cillero

Banekian, drogeriara behar nuela, baina zer erosi behar nuen, seko **ahaztuta nengoan** . Pablo Sastre

Kako-oker ia **ahaztuta zegoen** bere gatibuekin, baina, haiengana jiratu zenean, aurpegia argitu egin zitzaion berriro. Julen Gabiria

Ahaztuta nengoen oraindik ez nautela miatu. Koldo Izagirre

Ahaztuta nago zer eskatu nuen txanponak azkenez botatzean. Xabier Montoia

Sobiet Batasuna desagertu eta hamalau urtera ia **ahaztuta zeuden** izar gorriak paratu zituzten han eta hemen Moskun. Berria - Harian

Hori guztia **ahaztuta dago** , antza. Berria - Mundua

Haurrak **ahaztuta daude** GIB birusari munduan ematen ari gatzaizkion erantzunean. Berria - Gaiak

Esaterako, 1963an Donejakue Bidearen kronika: Jimeno Jurioren beraren oharrak, erreferentziak, ia **ahaztuta zegoen** bide baten inguruan. Berria - Kultura

Antzinako etxe-hondakinak berreraikiko dituzu, menderik mende **ahaztuta zeuden** oinarrien gainean jasoko. "Harresi zulatuen konpontzaile" eta "Etxe hondatuen berritzaile" deituko dizute. Elizen arteko biblia

Aspaldiko ohiturak **ahaztuta zeuden** , ordea, bakarrik aurkitu bainuen tabernaria. Xabier Mendiguren Elizegi

Ahaztuta zegoen nirekin. Anjel Lertxundi

Ahaztuta nengoen kortxoa ateratzekorik ez dagoela! Irene Aldasoro

9 *ezin ahaztuzko*

Ezin ahaztuzko koadroa zen hura. Josu Zabaleta

Hori guztia, dena sentitu nuen, **ezin ahaztuzko** bortiztasun batez sentitu ere. Josu Zabaleta

Kaleargi bakarraren argi ahulak zirkulu herdoilduaren erdian jotzen zuen, behin etxe izandako adreilu mordo, egur hautsi eta hautsaren gainean, hiri zikineko jende apala eta ezezaguna eta **ezin ahaztuzkoa** bizi eta maitatu eta hil, eta, beti, galtzaile izan zen leku hartan. Joxan Elosegi

Eta aurreikuspenetarako, arriskuaren azterketa probabilistikoa **ezin ahaztuzkoa** da. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahaztu ahal (9); **ahaztu al** (26); **ahaztu al zaik** (7); **ahaztu al zaizu** (8); **ahaztu aurretik** (5); **ahaztu azken** (5); **ahaztu baino** (14); **ahaztu baino lehen** (14); **ahaztu baitzitzaion** (5); **ahaztu barik** (45); **ahaztu bat** (5); **ahaztu behar** (279); **ahaztu behar ez** (7); **ahaztu beharko** (14); **ahaztu beharra** (6); **ahaztu bide** (6); **ahaztu dira** (5); **ahaztu ditut** (12); **ahaztu dituzte** (5); **ahaztu du** (24); **ahaztu duela** (8); **ahaztu dugu** (9); **ahaztu dut** (12); **ahaztu dute** (7); **ahaztu edo** (11); **ahaztu egin** (328); **ahaztu egin al** (14); **ahaztu egin behar** (25); **ahaztu egin du** (7); **ahaztu egin nahi** (10); **ahaztu egin nuen** (10); **ahaztu egin zaigu** (6); **ahaztu egin zaio** (13); **ahaztu egin zait** (34); **ahaztu egin zaizu** (9); **ahaztu egin zen** (5); **ahaztu egin ziren** (6); **ahaztu egin zituen** (5); **ahaztu egin zitzaidan** (9); **ahaztu egin zitzaien** (10); **ahaztu egin zitzaion** (37); **ahaztu egin zuen** (8); **ahaztu egin zuten** (7); **ahaztu egingo** (37); **ahaztu egiten** (166); **ahaztu egiten da** (15); **ahaztu egiten dela** (5); **ahaztu egiten dira** (7); **ahaztu egiten ditu** (8); **ahaztu egiten du** (6); **ahaztu egiten dute** (8); **ahaztu egiten zaie** (7); **ahaztu egiten zaigu** (5); **ahaztu egiten zaio** (17); **ahaztu egiten zait** (6); **ahaztu egiten zitzaion** (9); **ahaztu ere** (16); **ahaztu ere egin** (5); **ahaztu esan** (5); **ahaztu eta** (170); **ahaztu eta aurrera** (5); **ahaztu ez** (40); **ahaztu ezazu** (5); **ahaztu ezin** (14); **ahaztu ezinda** (5); **ahaztu ezinik** (6); **ahaztu gabe** (198); **ahaztu gero** (5); **ahaztu gura** (5); **ahaztu gure** (5); **ahaztu hau** (5); **ahaztu hori** (12); **ahaztu izan** (7); **ahaztu izana** (12); **ahaztu nahi** (71); **ahaztu nahi du** (8); **ahaztu nahi izan** (7); **ahaztu nahian** (8); **ahaztu nintzen** (11); **ahaztu nire** (10); **ahaztu nuela** (5); **ahaztu nuen** (13); **ahaztu omen** (5); **ahaztu orain** (5); **ahaztu ote** (9); **ahaztu zaidak** (5); **ahaztu zaidan** (5); **ahaztu zaie** (5); **ahaztu zaio** (18); **ahaztu zaiola** (7); **ahaztu zait** (31); **ahaztu zaizu** (13); **ahaztu zen** (12); **ahaztu zer** (5); **ahaztu zeure** (5); **ahaztu zituen** (17); **ahaztu zituzten** (5); **ahaztu zitzaidan** (16); **ahaztu zitzaien** (9); **ahaztu zitzaiola** (10); **ahaztu zitzaion** (30); **ahaztu zuela** (6); **ahaztu zuen** (30); **ahaztu zuten** (9)

aspaldi ahaztu (7); **azkar ahaztu** (5); **baina ahaztu** (31); **baina ahaztu egin** (14); **baina ahaztu gabe** (7); **baina ez ahaztu** (20); **baita ahaztu** (13); **baita ahaztu behar** (7); **bat ahaztu** (14); **batez ahaztu** (6); **batzuetan ahaztu** (10); **batzuetan ahaztu egiten** (8); **batzuk ahaztu** (5); **bera ere ahaztu** (5); **bere buruaz ahaztu** (6); **berehala ahaztu** (11); **betiko ahaztu** (5); **buruaz ahaztu** (8); **da ahaztu** (199); **da ahaztu behar** (104); **dagoeneko ahaztu** (5); **dela ahaztu** (22); **dela ahaztu gabe** (10); **den ahaztu** (12); **dena ahaztu** (21); **dezagun ahaztu** (30); **dira ahaztu** (25); **dira ahaztu behar** (13); **direla ahaztu** (8); **direla ahaztu gabe** (5); **ditu ahaztu** (6); **ditugu ahaztu** (9); **ditut ahaztu** (5); **du ahaztu** (28); **duela ahaztu** (5); **dugu ahaztu** (127); **dugu ahaztu behar** (60); **dut ahaztu** (17); **dute ahaztu** (29); **duzu ahaztu** (7); **edo ahaztu** (16); **edo ahaztu egin** (6); **egitea ahaztu** (7); **egiten ahaztu** (6); **erabat ahaztu** (29); **ere ahaztu** (64); **ere ahaztu egin** (9); **ere ahaztu egiten** (11); **ere ahaztu gabe** (12); **erraz ahaztu** (6); **esatea ahaztu** (7); **eta ahaztu** (71); **eta ahaztu egin** (11); **eta ahaztu egingo** (5); **eta ahaztu egiten** (14); **eta ez ahaztu** (38); **eta ezin ahaztu** (7); **etxean ahaztu** (5); **ez ahaztu** (227); **ez ahaztu hori** (5); **ez ahaztu nire** (7); **ez baita ahaztu** (7); **ez da ahaztu** (109); **ez dezagun ahaztu** (30); **ez dira ahaztu** (14); **ez ditu ahaztu** (5); **ez du ahaztu** (20); **ez dugu ahaztu** (62); **ez dut ahaztu** (11); **ez dute ahaztu** (23); **ez ezazu ahaztu** (5); **ez genuke ahaztu** (5); **ez nuen ahaztu** (5); **ez zaigu ahaztu** (5); **ez zaio ahaztu** (5); **ez zuen ahaztu** (12); **ezazu ahaztu** (5); **ezer ahaztu** (12); **ezer ahaztu gabe** (5); **ezin ahaztu** (60); **ezin baita ahaztu** (6); **ezin da ahaztu** (87); **ezin dira ahaztu** (11); **ezin ditugu**

ahaztu (6); ezin du ahaztu (7); ezin dugu ahaztu (64); gauza bat ahaztu (6); genuke ahaztu (5); genuke ahaztu behar (5); gero ahaztu (14); gertatutakoa ahaztu (8); guztia ahaztu (11); guztiak ahaztu (15); guztiz ahaztu (12); hantxe ahaztu (6); hartzea ahaztu (6); hori ahaztu (22); horiek ahaztu (7); hura ahaztu (19); ia ahaztu (22); inoiz ahaztu (32); inoiz ahaztu behar (5); inoiz ahaztu gabe (8); iragana ahaztu (13); jada ahaztu (5); jartzea ahaztu (5); kopa ahaztu (6); lagunak ahaztu (5); lana ahaztu (5); laster ahaztu (7); lehenbailehen ahaztu (10); nitaz ahaztu (5); nola ahaztu (11); nuen ahaztu (7); orain dik ahaztu (5); sekula ahaztu (14); zaigu ahaztu (5); zaio ahaztu (5); zela ahaztu (5); zen ahaztu (5); zer ahaztu (8); zer den ahaztu (7); zerbait ahaztu (22); zergatik ahaztu (7); zuela ahaztu (6); zuen ahaztu (17)

ahaztua du (7); ahaztua dut (10); ahaztua izan (5); ahaztua neukan (8); ahaztua nuen (30); ahaztua zuen (30); ahaztuak zituen (5); ahaztuko du (6); ahaztuko dugu (5); ahaztuko ez (36); ahaztuko ez dudan (7); ahaztuko ez duen (7); ahaztuko nola (7); ahazturik utzi (5); ahaztuta al (5); ahaztuta dago (11); ahaztuta daude (5); ahaztuta edo (5); ahaztuta egongo (5); ahaztuta eta (7); ahaztuta ez (5); ahaztuta geratu (5); ahaztuta izango (8); ahaztuta nengoen (9); ahaztuta neukan (19); ahaztuta utzi (14); ahaztuta zegoen (7); ahaztuta zeuden (5); ahaztuta zeukan (17); ahaztuta zuen (5); aspaldi ahaztua (5); baina ahaztuta (7); berehala ahaztuko (10); berehalakoan ahaztuko (12); dena ahaztuko (7); du ahaztuko (8); dut ahaztuko (17); dut inoiz ahaztuko (15); dut sekula ahaztuko (15); erabat ahaztua (10); erabat ahaztuta (24); erdi ahaztua (8); erdi ahaztuta (7); ere ahaztua (7); ere ahaztuko (9); ere ahaztuta (9); erraz ahaztuko (11); eta ahaztuta (7); ez du ahaztuko (7); ez dut ahaztuko (17); ez zait ahaztuko (10); ezin ahaztuko (6); guztiak ahaztuta (6); guztiz ahaztuta (10); hori ahaztuko (5); ia ahaztua (12); ia ahaztuta (14); inoiz ahaztuko (43); inoiz ahaztuko ez (10); nekez ahaztuko (10); nola ahaztuko (9); sekula ahaztuko (60); sekula ahaztuko ez (15); zait ahaztuko (10); zait sekula ahaztuko (7); zuen ahaztuta (5)

ahaztea da (9); ahaztea erabaki (5); ahaztea ere (5); ahaztea eta (6); ahaztea ez (7); ahaztea ez da (7); ahaztea hobe (5); ahaztea komeni (6); ahaztea nahi (5); ahazteko aukera (5); ahazteko ere (5); ahazteko eskatu (12); ahazteko eta (12); ahazteko helburuarekin (5); ahazteko moduko (16); ahazteko modukoa (13); ahazteko modukoa izan (5); ahazten ari (11); ahazten da (5); ahazten den (7); ahazten dira (14); ahazten ditu (8); ahazten ditugu (6); ahazten du (11); ahazten duela (5); ahazten dugu (6); ahazten dute (9); ahazten duzu (6); ahazten ez (21); ahazten ez den (6); ahazten hasia (5); ahazten zaie (7); ahazten zitzaidan (5); ahazten zitzaion (8); ahazten zuen (7); aise ahazten (5); azkar ahazten (6); berehala ahazten (7); beti ahazten (6); dena ahazten (12); ditu ahazten (7); du ahazten (7); dute ahazten (9); erabat ahazten (6); ere ahazten (12); erraz ahazten (9); eta ahaztea (5); eta ahazteko (7); eta ahazten (13); ez ahaztea (22); ez ahazteko (57); ez ahazteko eskatu (5); ez ditu ahazten (6); ez du ahazten (7); ez dute ahazten (9); guztia ahazten (10); guztiak ahazten (5); hobe ahaztea (5); hori ahaztea (8); hura ahazteko (7); inoiz ahazten (15); inoiz ez ahazteko (6); lehenbailehen ahazteko (6); porrota ahazteko (6); segituan ahazten (5); zitzaion ahazten (7)

---

ahaztualdi *iz* zerbait ahazten den aldia.

Ez zion luzaroan iraun, ordea, **ahaztualdiak** : lehen nagiak ateratzearekin batera, isla txuri bat iritsi zen haren begietara, eta orduantxe halako zartada bortitz batek korritu zion bizkarrezurra, goitik behera aurrena, eta behetik gora gero. Karlos Linazasoro

---

ahaztuarazi ik **ahanztarazi**.

---

ahaztugabe *izond* ahaztu ez dena.

Hortxe daude, lekua ez den urruneko barnetegi modukoan arte liberaletan ikasitakoak eta oraindik **ahaztugabeak** ; ez haien irudipenak, haiek beraiek baizik. Imanol Unzurrunzaga

---

ahaztura *(orobat **ahazdura** g.er.) iz* ahanztura.

Ahanztearen emaitzarekikoa hainbestean moldatu dugu, hiztegian egoteaz gainera ahoz aho dezente baitabil horri dagokion izena: **"ahaztura"** . Joxerra Garzia

Halako nazio batek ez zeukan lege idatzien premiarik, eta haien lege idatziak erraz eror zitezkeen **ahazturan** . Iñaki Iñurrieta

Haien handitasunaren jatorria ez al litzateke bada galduko **ahazturan** , gauean eta denboran? Iñaki Iñurrieta

Ahazturaren horma mehe zurian, bizpahiru oroitzapenen afixe higatuak. Joxerra Garzia

---

ahaztuxe *adlag* ahaztu sarmar.

Poe-ren sasoitik **ahaztuxe** ziren magia, fantastikotasuna eta emozio poetikoa -erromantikoagoa edo idealagoa- lortu nahi izan zuten Villiers de L'Isle-Adam-en *Contes cruels* edo Marcel Schwob-en *Bizi alegiazkoak* ipuin liburuek. Juan Garzia

Ahaztuxe nuen gertaera. Iñigo Aranbarri

Obispoak bezperako baraua **ahaztuxe** zuen, nonbait, txanda ezin harturik ibili behar izan baikenuen hari oilasko-muturren bat kentzeko. Inazio Mujika Iraola

Ahaztuxe nuen hitzen zarata etorri zait gogora, erabilera bat bestea zanpatzen. Iñigo Aranbarri

Eta halabehar honek adirazten du, **ahaztuxe** badugu ere, zeruko jainkotasun guziek lurreko gizakian dutela oin. Patziku Perurena

Egun hura **ahaztuxea** ere izan dut denbora luzez. Harkaitz Cano

"Igitaia" ere **ahaztuxea** daukagu. Andoni Egaña

Ahaztuxea neukan ordurako Nekaneren adiskidetasuna. Iñaki Arranz

Arestiko hitz guztiak dira zerrendagai: ikasi berri ditugun euskara batukoak, **ahaztuxeak** daudenak, euskalki desberdinetako hitzik ezagunenak, albo-erderatatik hartu eta geurekotu ditugunak. Andoni Egaña

Dagoeneko **ahaztuxeak** nituen gelakoen izenak eta gertakariak aipatu zituen luzaz berak. Joxean Agirre

---

aheria *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **ahoeri** agertzen da) iz ipar* maingueria, abereen eritasuna, azazkalen artean sortzen diren handitsu batzuk ezaugarri dituena.

Behi burtxoratuaren ixtorio hits horrekin aski ez balitz bezala, horra nun egundainokotan mainkueria (edo **aheria**) berriz agertu den! Herria

---

ahetz *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* zenbait isurkarik eratzen duten hondar lodia.

GRAINek (kudeaketa eramangarria ahalbidetu eta herritarren kontrolpean oinarritutako nekazal errekurtsoen erabilpena bultzatzen duen gobernuz kanpoko erakundea) salatu duenez, granja horietan hazten diren hegaztien elikagaien ohizko osagarriak hauek erabilitako oheak, **ahetzak** eta kakak izaten omen dira. ETC-prentsa

---

aheztar *izlag/iz* Ahetzekoa, Ahetzeri dagokiona, Ahetzeko biztanlea.

Ganden igandean Trufania eguna ohorezko eguna, **aheztar** batentzat, Carmen Urkia-k (Myriam serora, erlisionean), zelebratu ditu bere urrezko ezteiak, Notre Dame du Refuge Angelun, bertze 33 serorekin. Herria

Hor ariko dira Ipar Euskal Herriko bertsulari hoberenak: XALBADOR Mixel urepeldarra, EZPONDA Dominique **aheztarra** , LAKA Jean Louis baigorriarra, MIHURA Firmin azkaindarra. Herria

Bigarrena, Jean-Baptiste Artayet **aheztarra** , hunek 68 urte zituen. Herria

Plazerrekin jakin dut **Aheztar** gazte batek komertsa bat hartu duela Bildoze herrian. Herria

Aheztarrek nahi badute zerbait berri agertarazi *Herria* kazetan, deit nezazue, zuen zerbitzuko naiz. Herria

---

ahi **1** *iz* edozein irin mota esnetan egosiz egiten den jateko orea.

Hoa, hoa, zaharrak berotu eta **ahia** hoztu baino lehen, bota zuen Hermannek. Anjel Lertxundi

Bazkaria edo, ahora eramatera gindoazen **ahi** gisako nahaskin nazkagarri hura. Harkaitz Cano

Ahi tankerako gauza bat, seietan. Eskarne Mujika

Atzetik bi ume zetozen lapiko bat **ahi** hartuta, euritan freskatzen eta mehetzen ari zena. Anton Garikano

Egunero pizten zuen sua, eta **ahia** edo zoparen bat prestatzen zuen berarentzat. Koro Navarro

Ahia arrainarekin. Berria - Euskal Herria

Heinz multinazionalak merkaturatutako ume txikientzako **ahian** ere arroz transgeniko legez kanpokoa atzeman dutela salatu dute. Berria - Gaiak

Jantoki hutsaren erdian, **ahi** nazkagarriaren usaina zerion lapikotik gertu zegoen Esteban. Harkaitz Cano

Eta total, tripa-zorriei ezeren zaporerik ez zuen **ahi** okaztagarri hura jaten emateko. Harkaitz Cano

Mutur batean gaizkataren masailak eta kartilagoak sartu, beste batean arto beltzezko **ahia**, eta onddoak tipulatxoekin, eta arrain-hazi gozatuak, eta garunak, eta hik dakian hori guztia. Jose Morales

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

haurrentzako saltzen dituzten **ahi** potetxoz beteta zeukan hozkailua. Harkaitz Cano

Biek elkarrekin jan zuten **ahi**-katilukada, karitate tematsu hura zela medio; eta askoz gehiago gozatu ziren debozioaz, janariaz baino. Askoren artean

Ia erdiraino irentsia du **ahi** platerkada. Berria - Euskal Herria

Ahi bola biriketatik desbideratu eta urdailera bidean jartzeko denbora doia izan zuten rasoek. Harkaitz Cano

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hartu aharikia -esan zion Txitxikovi-, ahari-saiheskia da, artobeltz-**ahiarekin**! Jose Morales

Annerentzako zereal **ahia**. Josu Zabaleta

Katilukada handi bat olo-**ahi** janda berpiztu zen pixka bat, eta ogi txigortua jaten hasi orduko, taldekideak iritsi ziren. Iñaki Mendiguren

Bainilla usainezko arrautza-**ahia**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Olo **ahia** marrubiekin, esne hartzitua marrubiekin, ogia marrubiekin, postretarako marrubiak, marrubiak azukretan, marrubiak harearekin. Josu Zabaleta

4 irud/hed

Kartoia, halere, hanka-zolari itsasten zitzaion izerdiarekin, eta **ahi** edo ore zikin bat egiten zuen galtzerdian. Fernando Rey

5 ***olo-ahi***

-Zer gertatzen zaizu? -galdetu zion Ronek, beretzat **olo-ahi** gehiago hartuz. Iñaki Mendiguren

Olo ahia marrubiekin, esne hartzitua marrubiekin, ogia marrubiekin, postretarako marrubiak, marrubiak azukretan, marrubiak harearekin. Josu Zabaleta

-Zer daukagu gaur? -galdetu zion Harryk Roni, bere **olo-ahiari** azukrea botatzen zion bitartean. Iñaki Mendiguren

Olo-ahia hotzagatik muturtu egiten zen purrustero zahar petral batek zergatik predikatu guri? uste zuen Bankes jaunak esaten zutela gazteek gaur egun. Anton Garikano

6 ***ur-ahi*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Gero, maiz, arropak **ur-ahiz** edo almidoiz tratatu eta, eurek lisatzen zituzten. ETC-literatura, saiakera

Sangratu egin zuen, eta esan zidan gazura eta **ur-ahia** besterik ez emateko. ETC-literatura, saiakera

Almidoia disolbaezina da ur hotzean eta alkoholean. Ur beroan, baina, **ur-ahia** sortzen du, zeinak iodo-disoluzio batean kolore urdina hartzen duen. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ahi** (3); **eta ahia** (4); **olo ahi** (3); **olo ahia** (8)

---

ahide ik **ahaide**.

---

ahidura *iz* nekea, unadura.

Ahidurak laxatzen ninduen, baina gora ekin nion, noizik behin baizik gelditzeke, zorionaren zorionez baldarki zinkurin egiteko. Juan Garzia

Hala abiatu nintzen unibertsitaterantz, neure nekearen eta neure **ahiduraren** gainetik. Joan Mari Irigoien

Langite honetan hasi zen, hala nola marinelak sentitzen duen, ez **ahidurarik** gabe, haizeak bela puztutzen diola eta hala ere abiatzeko gogo gutxi daukala. Anton Garikano

Makurturik zegoen **ahidurarekin**.Bere energia-gordailua aldez edo moldez ahitu ezean, eguna alferrik galdu zuela iruditzen zitzaion, eta **ahidura** horretan are biziago ageri zuen begirada. Juan Garzia

Udako **ahidura**; eraman txarreko trenpea; Oinik gabe gelditu izanaren halako sentsazio etereo bat, non ez baitute ezer pisatzen bero sapak, lotsak, kontzientzia txarrak. Berria - Kultura

---

ahigarri *izond* ahi daitekeena.

Beste langai guztiak **ahigarriak** dira, agor daitezke edo gera daitezke erabiligarritasunik gabe. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

ahikor *izond* ahitzeko joera duena.

Sekula izan denik eta idazlerik bikainenetako bat, zer, eta panpina galdu baten gutun alegiazkoak idazten denbora galtzen, bere inoizko denborarik baliotsuen eta **ahikorrena** galtzen. Oskar Arana

---

ahindu ik **arindu**.

---

ahistoriko *izond* historia kontuan hartzen ez duena, historiatik at kokatzen dena.

Izan bat, intuizioak bakarrik atzeman ahal izateko modukoa, ez begiespenak eta ez adimen zehatzak, hots, ente **ahistoriko**, metafisiko bat azkenean, positibismo txarretan maiz bezala. Joxe Azurmendi

Oro har, erlatibismoak ukatzen du gure baieztapenak termino **ahistoriko**, akultural edo absolutuetan funtsa daitezkeela. Askoren artean

---

ahistorikotasun *iz* ahistorikoa denaren nolakotasuna.

Ahistorikotasun erabateko hori eragozgarria dela eman lezake, baina arteari buruzko gogoetaren parte handi bat sumatzen da proiektu horretan, artelanen esanahia zein den eta artelanak nola ulertzen ditugun aztertzen duen parte osoa. Josu Zabaleta

---

ahitezin *izond* ezin ahituzkoa.

Isil-trebetasun horretatik idazketa soil-soilik ideografikora -esperientzien, eta ez soinuen, komunikazio zuzenera- distantzia **ahitezina** dago, baina etorkizuna baino laburragoa beti ere. Juan Garzia

Eta modu bihurri hori da Tsíui PÍn zeharzaleak bere nobela-ibai **ahitezinaren** bihurgune bakoitzean hautatu zuena. Juan Garzia

Rektifikatzeak zera esan nahi du, zatika destilatzea, arauzkotik gorago zein beherago irakiten duten zatiak baztertuz eta "bihotza" jasoz, zeinak tenperatura egonkorrean irakin behar baitu: hantxe aurkitu nuen, soto **ahitezinean**, beharrezko beirateria. Juan Garzia

---

ahitu, ahi(tu), ahitzen **1** da/du *ad* isurkariez eta kidekoez mintzatuz, erabat bukatu, agortu.

Azkenean, Betuliako jendeari **ahitu** egin zitzaion ontzietako ura. Elizen arteko biblia

Zahatoko ura **ahitu** zitzaionean, zuhaitz baten azpian utzi zuen haurra. Elizen arteko biblia

Hamar litro hek **ahitutakoan** txintxorroa berriz hartu eta hor ikusten nuen bazihoala ontziola flotantearen gibeletik, ur onenaren xeka. Koldo Izagirre

2 zerbaitetik dagoen guztia bukatu. ik **xahutu**.

Suak egurra **ahitu** egin ohi du, egurra su bihurtzen delarik. Joan Mari Lekuona

Minutuak egin zituen edariak nire begira, malkotan **ahituz** doan kandela moduan. Koldo Izagirre

Elikagaiak ez ziren **ahitu** oraindik, eta nork bere partea hartu zuen. Karlos Zabala

Hornikuntza **ahitu** zenean, bertan gelditu eta lurra lantzen hasi ziren. Xabier Olarra

Ta zuk ekarri dituzun janariak **ahitzean**, non bila ditzakegu horrelakoak? Elizen arteko biblia

Bien bitartean, ontziko janari guztiak **ahitu** zituzten eta Frantzisko pobrearentzat ekarritakoa baino ez zen gelditzen. Askoren artean

Polenta jan beharko diagu -xuxukatu zien-, ogia **ahitu** egin duk. Josu Zabaleta

Ontziko marinelek ezin diote arraunketari ekin, goseak baitaude, aspaldi **ahitu** zaizkie-eta zer jana, zer edana, ontziko horni guztiak. Anjel Lertxundi

Egiptotik ekarritako garia **ahitu** zenean, Jakobek bere semeei esan zien: -Zoazte berriro garia erostera. Elizen arteko biblia

Urte hartan janaria **ahitu** zen hirian eta jendearen gosea izugarria zen. Elizen arteko biblia

Lurrin-dendako lana galdua nuen hartan, beste lanen baten bila hasi beharko nuen inolaz ere, dirua **ahitu** bezain laster. Joxan Elosegi

Ni ere bizi naiz ordea, baina ez nago segur zergatik bizi naizen, munizioa **ahitu** zitzaielako edo nire ordez besteren bat fusilatu zutelako edo, besterik gabe, zaharra izatera iritzi naizelako. Koldo Izagirre

Muskuluak ez dira errenditzen oxigenoa **ahitzen** zaienean: lanean jarraitzen dute, eta, bitarte horretan, azido laktikoa eta denbora labur batean jasan daitezkeen beste gai batzuk pilatzen dituzte. Irene Aldasoro

Nire aurrean agertu zinenetik maite izan zaitut, eta maitasun hori ez da **ahituko**. Agustin Otsoa

Eta ez duk munduari aurrera ekiteko hire kemena ere **ahituko**. Anjel Lertxundi

Horizontearen atzean ezkutatu aurretik eguzkiak eskaintzen duen azken errainuaren gisa ari zitzaion bukatzen, **ahitzen** bizitza, bereak egina zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ahitua dago fase hori, eta bide berriak planteatu behar ditugu, bultzada berriak. Berria - Euskal Herria

Indarrak **ahituko** zaizkiok bidean. Karlos Zabala

Azken indarrak ia **ahiturik**, kemena du oraindik hitzak elkarren hurren zuzen paratzeko. Imanol Zurutuza

Denbora berean, indarrak **ahitzen** ari zitzaizkiola konturatu zen, bernetan karranpak sentituta.Leher eginda nengoen, **ahiturik** hala gorputzez nola buruz. Josu Landa

Ia **ahituriko** zuzia txinpartaka itzali zen, eta ilunpeak marea gisa bildu zuen. Agustin Otsoa

Andrearen epela galdu berri duten ezinduak dira Markos eta Nestor, pilak **ahituriko** txotxongilo, esku krudel batek zutik atxikiak. Markos Zapiain

Jasser Arafatek esan du bi estatuen aterabideari denbora **ahitzen** ari zaiola. Berria - Mundua

Poz hori **ahiturik** dago aspaldi. Monika Etxebarria

Sinesmena **ahitzen** denean, maitasuna ere **ahitu** egiten duk, eta jokabide jakin batzuen errutina gelditzen duk. Anjel Lertxundi

Mendearen bukaeran, emigrazio anglosaxoia **ahitu** zenean, Mediterraneoko herrialdeetara zabaldu zen fenomeno hau (Italia, Espainia, Portugal, Grezia). Koro Navarro

Horrek **ahitu** zuen nire pazientzia. Anjel Lertxundi

Zigarroa oraino **ahitu** gabe neukala jakinarazi zidan bulegari mari-ozpinak "Urtxipia jauna" nire zain zegoela. Aingeru Epaltza

Ordu erdien kanpai hotsa hedatu zen airean, eta haren dardarak luze iraun zuen txorien txioen eta hostoen marmarren artean, **ahitu** zen arte. Ramon Saizarbitoria

Neskak eria pasatzen du gauero sarraila-zulotik eta Basa Jaunak xurgatu eta xurgatu egiten dio; ondorioz, neska **ahitzen** eta **ahitzen** ari da, suspirio etengabeen artean. Anjel Lertxundi

Botila hura **ahituxea** zegoen, eta beste bat atera ziguten. Inazio Mujika Iraola

Kontzertu bakarra ematekoak ziren Apolo aretoan, baina sarrerak **ahitu** zirela-eta bihar ere han izango da Muguruza Kontrabandarekin. Berria - Kultura

3 erabat nekatu; indarraz edo kidekoez mintzatuz, bukatu.

Nola **ahitzen** duen publikoak pertsona! Patziku Perurena

Ondorioz, oso indar gutxi du, **ahitzen** ari da. Berria - Gaiak

Yusuf **ahitua** zegoen, dibanaren oinean bil-bil egina. Fernando Rey

Ahiturik eta indarrik gabe sentitzen nintzelako. Joan Mari Irigoien

Ahituta zeuden, nekeak jota. Iban Zaldua

Ja ez genuen gehiago hitzik esaten, beroak eta nekeak **ahiturik**, eta egarriak basamortu kiskalia bera bezalaxe agorturik. Josu Zabaleta

Ondoz ondoko emozio haiek guztiek **ahiturik** zeukaten, eta konortea galdu zuen. Josu Zabaleta

Nekaturik eta erdi **ahiturik** zegoen arren, osabari ez zion bertze zorabio hark zentzua galarazi. Joan Mari Irigoien

Hamar egun geroago hil zen (1852ko otsailaren 21ean), baraualdi luzeak **ahiturik**. Jose Morales

Nekaturik nagok, **ahiturik**. Agustin Otsoa

Ihesi doazenak, **ahiturik**, Hexbonen babesean gelditu dira. Elizen arteko biblia

-Bai -esan zion Pippinek-, **ahituta** nago: ezer ez egiteak eta itxaroteak nekatuta. Agustin Otsoa

Guztiz **ahituta** nengoelarik, eta loak hartzeko zorian, tximista batek gurutzatu du nire barrunbea: [...]. Txillardegi

Ibaiari begiratu zionean, esperantza **ahitu** egin zen bere baitan. Agustin Otsoa

Ez da konturatzen apurka-apurka dena andeatuz eta hondatuz doala, bizitzako ibilbide aspaldikoak **ahitua**. Xabier Amuriza

Baina gaur nire gorputza **ahituegi** dago hura jasateko. Monika Etxebarria

Bixkor zetozen, nahiz gurdizainak, gau oso bateko lanak **ahiturik**, beren jarlekuan erdi lo zeuden, uhalak eskuan, uhalak ere lokarturik, antza. Matías Múgica

Burtsak ere arratsaldean **ahituta** itxi zuen eguna: Erreserba Federalaren bilera hasia zen eta hark esango du etorkizun hurbilean burtsak zer emango duen. Berria - Ekonomia

4 (era burutua izenondo gisa)

Bere baitan biltzen zuen, halaber, isiltasuna, pixkanaka hiltzen lihoakeen preso **ahitu** bat bailitzan. Xabier Olarra

Sorgorturik eta gogogabeturik bezala zirudiena borrokan ikusi nuen bere buruarekin, bere indar hondarrak jokoan jartzen dituen naufrago **ahituaren** antzera, hondamenditik salba lezakeen ohol miragarriaren bila. Joan Mari Irigoien

Hasieran talde txiki eta sakabanatuak iritsi ziren: ordenarik gabe zebiltzan gizon **ahituak**, sarri askotan zaurituak. Agustin Otsoa

Harritzen dira mende **ahituetako** erreferentzia aho mihian dilindan darabilzkidalako. Itxaro Borda

Zeren gorputza nahi den bezain zahar eta **ahitua** egonda ere, arima nahikari eta oroitzapenez betea edukitzen baitugu, poz bila ibiltzen duk. Amari goizero bezperako kontuak eman, haien harreman **ahituaren** partaide izan, miseria emozionalaren lekuko, gehiegizkoa zen niretzat. Xabier Olarra

Amari goizero bezperako kontuak eman, haien harreman **ahituaren** partaide izan, miseria emozionalaren lekuko, gehiegizkoa zen niretzat.Arimetara iritsi ginen eta areago, Israel egiaren janariaz betiko elikatzen duzun ugaritasun **ahitu** ezineko hartara. Eider Rodriguez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahitu arte (9); **ahitu egin** (10); **ahitu egiten** (4); **ahitu eta** (5); **ahitu gabe** (3); **ahitu ondoren** (5); **ahitu zaio** (3); **ahitu zen** (8); **ahitu zenean** (5); **ahitu ziren** (3); **ahitu ziren eta** (3); **ahitu zitzaiola** (3); **ahitu zitzaion** (3); **ahitua eta** (3); **ahitua zegoen** (4); **ahiturik dago** (3); **ahiturik eta** (6); **ahiturik zegoen** (4); **ahituta zegoen** (3); **bezain ahiturik** (4); **erabat ahitu** (3); **erabat ahituta** (3); **ere ahitu** (4); **eta ahitu** (7); **eta ahitua** (4); **guztiak ahitu** (7); **guztiak ahituko** (3); **guztiz ahituta** (5); **indarrak ahitu** (8); **indarrak ahituta** (5); **janari guztiak ahitu** (3); **munizioa ahitu** (3); **pazientzia ahitu** (3); **ura ahitu** (3)

---

ahitzaile *izond* ahitzen duena.

Harik eta eritasun **ahitzaile**, oinaze gabeko batez hiltzen nintzen arte. Koro Navarro

---

ahitze *iz* zerbaitetik dagoen guztia bukatzea.

Eta haren bizitza **ahitze** luze bat bihurtu zen handik aitzina eta luzaro hiltze bat. Joan Mari Irigoien

Javier Madrazo EB-Berdeetako buruaren ustez, **"ahitze** egoeran daude Batasunaren eta PSOEren arteko elkarrizketak". Berria - Euskal Herria

---

ahitzear *adlag* ahitzeko zorian.

"Tira, hau nik pentsatu bezala amaituko duk", hala entzun zion bere adimenari, eta **ahitzear** zegoen arren hutsean galdu aurretik barre txiki bat ere egiten zuela iruditu zitzaion, azkenean hainbeste zalantza eta kezka eta beldur atzean uzteak poztuko balu bezala. Agustin Otsoa

Baina indarrak **ahitzear** dagoela sumatzen diogu, nerbioak lehertzear dituela.Lanparako olioa **ahitzear**, ordurako gelaz jabetua zen egunsenti goibel euritsua. Josu Zabaleta

---

ahizpa *(orobat **ahizta** g.er. eta **aizpa** g.er.)* **1** *iz* emakumezko batentzat, senide emea. ik **anaia**; **neba**.

Eta irriz hasi ziren ama eta **ahizpak**, irriz hasi ziren guztiak. Joan Mari Irigoien

Bere ohiko zinismoaz hasten zen hizketan, ama eta **ahizpa** eskandalizatuz. Josu Zabaleta

Emadazue seinale bat, segurua, bizirik utziko dituzuela nire aita eta ama, nire nebak eta **ahizpak**, beren senide guztiekin, eta heriotzatik libratuko gaituzuela. Jose Antonio Mujika

Ahizpak erosi zuen, hark izango du! Pablo Sastre

Senarra eta haurrak zapuztu zituen amaren alaba zara zu, eta senarrak eta haurrak zapuztu zituzten **ahizpen ahizpa**. Elizen arteko biblia

Anastasiok egongelako atea berriro ireki zuenean, lau **ahizpek** eta Leirek Agustin sartzen ikustea espero zuten, baina, haren ordez, berrogei urte bete gabe zituen emakume gazte bat sartu zen. Aitor Arana

Guraso zoragarriak ditut eta hamasei urteko **ahizpa** bat ere bai. Josu Zabaleta

Familian neskatxaren bat badago, hurrengo **ahizparen** patua heriotza izan liteke. Gotzon Garate

Ahizpa bat ekartzeko eskatu diot amari. Xabier Montoia

Beraz, ama eta **ahizpa** hil ondoren, niri zegokidan, alaba gazteenari. Ander Irizar

Stellaren **ahizpa** zara zu? Xabier Paya

Potter andrea Dursley andrearen **ahizpa** zen. Iñaki Mendiguren

Andere hori Pujo alarguntsaren **ahizpa** zen eta Magali Zubillagak kantu bat eman du mezan bere izebaren arimarendako. Herria

Bizirik zegoela eman zidan amonak bere **ahizparen** eraztuna. Joxan Elosegi

Zure **ahizpa** hantxe dago, senarrak bolatan nola jokatzen duen begira. Xabier Paya

Puska batean zain egon ondoren, horra non ikusten ditudan datozkidala, Lina bera eta Cattina, bere **ahizpa**. Josu Zabaleta

Ez duzu sexu-harremanik izango zeure amaren **ahizparekin**: zure amaren odol berekoa da. Elizen arteko biblia

Joxepa, gure amona zenaren **ahizpa** zuan. Xabier Etxabe

Nire amak kontatzen du, 1949 inguruan, lanera joateko alabak **ahizparekin** uzten zituela, eta, autobusa hartzen zuenean, negarrez alde egiten zuela, alabek ez zutela maitatuko pentsatuz. Ana Urkiza

Amaordearen **ahizpa**, baina, kexu da eskuz lan egin behar dudalako. Urtzi Urrutikoetxea

Genevan bere **ahizpa** Gina eta bere koinatu Guglielmo Ferrero zituen, urte asko lehenago arrazoi politikoengatik hara alde eginak. Fernando Rey

Negarrari nekez eutsita, berriro lurrean utzi zuen emakumeak bere **ahizpa** zenaren gorpua, hari begiak kontu handiz itxi ondoren. Aitor Arana

Hala, Denverrek amaren esnea ez ezik **ahizparen** odola ere edan zuen. Anton Garikano

Keogh txiki elbarria, bera eta beraren nebak eta **ahizpak**. Irene Aldasoro

Kontu zabaldua zen Kasparren andreari eta bere hiru **ahizpei** burua soildu zietela faxistek herria hartu zutenean. Koldo Izagirre

Lasterka joan omen zen **ahizparenera**, eta asaldatuta, etsita aurkitu omen zuen. Imanol Zurutuza

14.45: Kantaldia Aire **ahizpak**. Herria

2 (izenondoekin)

Ezkontzarekin, aitak bere ama ekarri zuen etxera, eta amak, aldiz, bere **ahizpa** ezkongabea. Ana Urkiza

Nire **ahizpa** gajoaren semea zara, Moncrieff andrearen semea, eta Algernonen anaia zaharra, beraz. Antton Olano

-Mikel naiz, zure **ahizpa** biki Anaren maitalea. Aitor Arana

Ahizpa bixki bat ere bazuen, izeba Martxelina, neskazahar geratua eta baserrian bizi zena, urtebete lehenago hil zena. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ah, hori Clara da, zure lehengusinen **ahizpa** txikia -erantzun zion izebak-. Iban Zaldua

Emakume batek sute batean galtzen ditu aita eta **ahizpa** bikia, eta aspaldian utzitako gizonarekin itzultzen da. Javi Cillero

Josten pasatzen ez zituen orduak alanbrea zuzentzen pasatzen zituen, **ahizpa** zaharrenak lagunduta. Arantxa Iturbe

Beti bere amarekin edo bestenaz bere **ahizpa** zaharrenarekin. Janbattitt Dirassar

Apartamentua erosi bai, baina herrian, familiaren etxetzarra atxiki zuen tokitik berrehun bat metrora eta, deus falta ez zedin, **ahizpa** neskazahar batekin erdibana. Aingeru Epaltza

Amaiak su biziari begiratu zion eta Pilarrek horixe aprobetxatu zuen bere **ahizpa** gazteari ikusminez erreparatzeko. Aitor Arana

Ceciliak eta **ahizpa** gazteenak gelatxo berean egiten zuten lo, beheko solairuan. Josu Zabaleta

Ahizpa nagusiak arrazoia zuela pentsatu zuen Amaiak. Aitor Arana

Esango diot nire **ahizpa** ttikiari azken adioa eman nahi niokeela. Patxi Zubizarreta

Gure **ahizpa** txikiena jaio zela zure herrian jakin nuen nik. Arantxa Iturbe

Ez nuke honelakorik esan behar nire **ahizpa** bakarraz, Rosek ahaide bakarra zuen, **ahizpa** ezkondu bat, eta beste herri batean bizi zen. Mirentxu Larrañaga

Batera bizi ginen aitita eta amama, amamaren bi **ahizpa** ezkongai, ama, neure osaba aitabitxia eta neu. Ana Urkiza

Aditzera eman zuen Lisari lotsa pixka bat ematen ziola bere **ahizpa** langile gizagaixo batekin ezkondu izanak. Karlos Zabala

Juliak eta biek beti agertu izan zuten harrotasun pixka bat beren **ahizpa** serio eta etxekoandre-itxurakoaz. Irene Aldasoro

Goresmenak bi **ahizpa** talendutsu horieri! Herria

Haurrak altxatu-eta hasi du asmatua zuen bidea, bainan bere **ahizpa** gaztegoaren **ahizpa** izanen da, Celine Dion kantariaren **ahizpa** izanen da, Celine Dion kantariaren **ahizpa** gehiena baita. Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lurjabeak etxean zituela alaba Adelaida Sofronovna eta haren hiru ezkon-**ahizpak**: Maria Gavrilovna, Aleksandra Gavrilovna eta Adelgeida Gavrilovna. Jose Morales

Hasteko, neska hori bular **ahizpa** dut, eta lotura hori guretzat hutsala izanagatik, ez da indarrik gabea gisa horretako jendakiarentzat. Jon Muñoz

Pareta gora gotorren bertze aldean, gogaide dituzten hainbat herritar, hainbat anaia-**ahizpa** badirela. Xabier Montoia

Zuek zeuek eta zeuen neba-**ahizpak**. Aitor Arana

Urte batzuk doi bete orduko, begietako bristada nabarmenarengatik berezi zen bere neba-**ahizpengandik**. Juan Garzia

4 emakumezkoen zenbait ordena eta kongregazioetako kideei ematen zaien izena edo trataera. ik**arreba**.

Anaien bizimoldeak ez zuen Klara eta honen **ahizpentzat** balio. Askoren artean

Komentua garbitzen kantari nenbilen batean, errieta egitera etorri zitzaidan **ahizpetako** bat. Arantxa Iturbe

Frantzisko dohatsua hil zen astean, larriki gaixo zegoen andre Klara, **Ahizpen** Ordenako lehen landaretxoa, Asisko San Damian monasterioko **Ahizpa** pobreen abadesa eta Jainkoaren Semearen pobretasuna gordetzen Frantziskoren lehiakidea. Askoren artean

Ermentrudis **ahizpa** bihotzekoari, Asisko Klara Jesu Kristoren mirabe xumeak: osasuna eta bakea. Askoren artean

Kristoren Amak bere birjintasunezko kastitatea eta apaltasuna emakume batengan, hau da, **ahizpa** Klararengan, berrituko zituela hitzeman zuen, horrela honen etsenpluaren bidez milaka emakume gure atzaparretatik libratuz. Askoren artean

Azken gomendioen artean, Santa Klara eta bere **ahizpei** Aholku abestua da lehenengoa. Askoren artean

Ondo ikusten zuen Frantziskok Klara eta beraren **ahizpen** konbertsioa eta biziera, anaien Ordenarentzat gorapen ez ezik, Eliza osoaren eraikuntzarako ere laguntzarik bikainena zirela. Askoren artean

Irailaren 17an, Gregorio IX.ak Pobretasunaren Pribilegioa berresten die Klara eta **ahizpei**. Askoren artean

5 irud/hed

Samaria eta Jerusalem, bi **ahizpa** bekatari. Elizen arteko biblia

Jakinduria, pobretasun eta karitate bertute "santuak" aipatzen eta agurtzen ditu Frantziskok, eta xalotasun, apaltasun eta obedientziaren **ahizpatzat** ematen. Askoren artean

Andere karitate santua, Jaunak gorde zaitzala zeure **ahizpa** obedientzia santuarekin! Askoren artean

Pertsekuzioa, Pobretasunaren **ahizpa**. Askoren artean

6 ***bular ahizpa***

Hasteko, neska hori **bular ahizpa** dut, eta lotura hori guretzat hutsala izanagatik, ez da indarrik gabea gisa horretako jendakiarentzat: bertzenaz, haren sekretuaren jabe naiz, eta hobeki dena, amodiozko eroaldi batek joa, galdua zatekeen nik salbatu ez banu. Jon Muñoz

7 ***neba-ahizpa*** *(**5** agerraldi, **4** liburu eta artikulu **1**ean) pl*

Nora Langen oroitzapenak ez dira gozoagoak: «Nik hamahiru urte nituen, eta gurasoekin eta **neba-ahizpekin** bizi nintzen [...]». Rahab, beronen aitamak, **neba-ahizpak** eta ahaide guztiak etxetik atera eta israeldarren kanpalekutik kanpora utzi zituzten. Berria - Euskal Herria

Urte batzuk doi bete orduko, begietako bristada nabarmenarengatik berezi zen bere **neba-ahizpengandik**. Juan Garzia

8 ***sabel ahizpa*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Sabel ahizpa, sabel anaia: bikinak, biritxiak. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ahizpa bat** (18); **ahizpa batek** (4); **ahizpa batekin** (3); **ahizpa beltzaranak** (5); **ahizpa biak** (4); **ahizpa bikiak** (4); **ahizpa bizi** (5); **ahizpa da** (3); **ahizpa edo** (5); **ahizpa ere** (12); **ahizpa eta** (36); **ahizpa eta biok** (9); **ahizpa ez** (8); **ahizpa gaztea** (6); **ahizpa gazteak** (4); **ahizpa gazteenak** (3); **ahizpa guztiei** (4); **ahizpa guztien** (7); **ahizpa hil** (4); **ahizpa ines** (3); **ahizpa klara** (3); **ahizpa laztana** (4); **ahizpa nagusia** (7); **ahizpa pobreen** (9); **ahizpa txikia** (10); **ahizpa txikiak** (4); **ahizpa txikiena** (4); **ahizpa zaharrena** (6); **ahizpa zaharrenaren** (4); **ahizpa zen** (5); **ahizpak alde** (3); **ahizpak eta** (23); **ahizpak ez** (11); **ahizpak ipuinari** (18); **ahizpak ipuinari zoragarria** (18); **ahizparekin eta** (4); **ahizparen artean** (3); **ahizparen bat** (7); **ahizparen bati** (3); **ahizparen bila** (3); **ahizparen eta** (3); **ahizparen lagun** (3); **ahizparen ondoan** (5); **ahizpei aholku** (7); **ahizpei aholku abestua** (7); **ahizpek eta** (3); **ahizpen artean** (3); **ahizpetako bat** (5); **aire ahizpak** (37); **aire ahizpak eta** (4); **ama eta ahizpa** (5); **amaordearen ahizpa** (3); **amaren ahizpa** (13); **anaia eta ahizpen** (3); **beraren ahizpek** (4); **bere ahizpa** (48); **bere ahizpak** (14); **bere ahizparekin** (6); **bere ahizparen** (11); **bere ahizpari** (4); **bere ahizpei** (12); **bere ahizpei aholku** (7); **bere ahizpek** (4); **bere ahizpekin** (4); **beste ahizpa** (5); **beste ahizpak** (5); **beste ahizpen** (3); **bi ahizpa** (32); **bi ahizpak** (29); **bi ahizpek** (4); **bi ahizpen** (7); **da ahizpa** (4); **dio ahizpak** (3); **dio ahizpari** (4); **diren ahizpek** (3); **du ahizpa** (3); **du ahizpak** (3); **dunyadad ahizpak** (18); **dunyadad ahizpak ipuinari** (18); **dute ahizpek** (3); **edo ahizpa** (7); **edo ahizparen** (5); **edo ahizparen bat** (3); **emaztearen ahizpa** (4); **ene ahizpa** (11); **eta ahizpa** (22); **eta ahizpak** (20); **eta ahizparen** (11); **eta ahizpari** (3); **eta ahizpen** (8); **eta bere ahizpa** (5); **eta bere ahizpak** (3); **eta bere ahizpei** (8); **eta bere ahizpek** (3); **eta haren ahizpa** (3); **eta nire ahizpak** (6); **etcheverry ahizpak** (3); **haien ahizpa** (3); **haren ahizpa** (19); **hire ahizpa** (9); **hire ahizpak** (7); **hiru ahizpak** (7); **hiru ahizpei** (3); **honen ahizpa** (3); **ixabelen ahizpa** (3); **klara eta ahizpak** (3); **nebak eta ahizpak** (3); **neskaren ahizpa** (3); **nire ahizpa** (54); **nire ahizpa ez** (3); **nire ahizpak** (20); **nire ahizparekin** (3); **nire ahizparen** (13); **nire ahizpari** (4); **stellaren ahizpa** (3); **williams ahizpak** (6); **xendari ahizpak** (3); **xendariineko ahizpak** (6); **zaitzala zeure ahizpa** (3); **zazpi ahizpen** (4); **zeure ahizpa** (5); **zien ahizpei** (3); **zion ahizpa** (4); **zion ahizpak** (3); **zion ahizpari** (5); **zuen ahizpa** (4); **zuen bere ahizpa** (4); **zure ahizpa** (18); **zure ahizparen** (3)

---

ahizpadi *iz* ahizpa multzoa.

Lehenenetarikoa Iruñean bertan genuen, hiritik kanpo aldera, trenaren geltoki inguru horretan, gerora Erriberrin kokatuko zen **ahizpadia**. Pello Zabala

---

ahizpagai *iz* frantziskotarren ordenan, ahizpa izateko prestatzen ari dena.

Karisma eta bizimoldearen funtsezko balio eta hautuak koherentziaz elkar-loturik ematen dira Erregelan: Ebanjelioaren araberako bizitza (I. eta II. kap.); Frantzisko eta honen anaiekiko harremanak (I eta XII); **ahizpagaien** ebanjeliozko bizitzara konbertsioa (II). Askoren artean

---

ahizpaño *iz adkor* ahizpatxoa.

-Ez, badut **ahizpaño** bat, ni baino handiagoa. Janbattitt Dirassar

---

ahizpaorde *(corpusean ez dago; ETCn **77** agerraldi) iz* emakume batentzat, bere amaren edo aitaren, baina ez bien,

alaba.

Bizitza osoan sumatu nuen Amaia eta biok **ahizpaordeak** ginela. ETC-literatura, saiakera

Orkatiletan galtzerdiek marka uzten dizute eta oinetakoak janztean Mari Errauskineren **ahizpaordeak** bezala sentitzen zara, beirazko zapata jantzi ezinik, estu eta larri aieneka printze urdinaren aurrean. ETC-literatura, saiakera

Zuek ez dakizuena da ni zuen amaren **ahizpaorde** horrekin ezkondu nahi nindutela. ETC-literatura, saiakera

Terrik **ahizpaorde** asko zituen, bere aitak izandako harreman guztien ondorioz. ETC-literatura, saiakera

Aitortzen zuen bere **ahizpaordea** Eskandinaviako emakume ederrenen parekoa zela, garaieragatik, begi berde ikusgarriak eta ile lastokara zituelako. ETC-literatura, saiakera

Beste bien ahizpa odolekoa da ala **ahizpaordea**? ETC-literatura, saiakera

Beraz, zuk nahi gabe, baina gure Teresa **ahizpaordea** zenuen. ETC-literatura, saiakera

Gurasoek abandonatuko zaituztenaz ohartarazle finak dituzu Hansel eta Gretel, Txanogorritxok diotsunez jango zaituen otsoa izan daiteke ezezagun oro, amaordeez eta **ahizpaordeez** batere fio ez izatera behartzen zaitu Errauskinek. ETC-literatura, saiakera

Eliren **ahizpaordea** dela badakite beste pertsonaiek, baina inork ez du jakingo Amaia ingeles irakasle berriaren alaba dela. ETC-prentsa

Letizia Ortiz Espainiako printzesa da obrako pertsonaia nagusia, baina beste hiru ere agertuko dira oholtza gainean: **ahizpaordea**, erregea eta printzea. ETC-prentsa

Angela Warren: Caroline Craleren **ahizpaordea**; gero, esploratzaile ospetsua "(bost txerrikumetako bat)". ETC-entziklopedia

Horrez gain, Kathleen Ferrier herbehereetar politikariaren **ahizpaordea** da. ETC-entziklopedia

---

ahizparteko *izlag* ahizpen artekoa.

Probaldiko urtea betetzean, onartua izan bedi **ahizparteko** obedientziara, pobretasunezko gure bizimodu eta moldea beti gordetzeko hitza ematen duelarik. Askoren artean

---

ahizpatasun *(ETCn **147** agerraldi, horietatik **118** azken sei urteetan) iz* ahizpa izateko nolakotasuna.

Probaldiko urtea betetzean, onartua izan bedi **ahizparteko** obedientziara, pobretasunezko gure bizimodu eta moldea beti gordetzeko hitza ematen duelarik. Askoren artean

---

ahizpatxo *iz adkor* ahizpa.

Eta osaba igo zen Etxabe zaharrean: **"ahizpatxo** bat izan duzue", esan zigun ezer baino lehen. Arantxa Iturbe

-Gauzak aldatu egin ditun, **ahizpatxo**, hobeto gauden honela, hainbesteko beldurrik gabe jauntxoei, apaizei... Jon Maia

---

ahizpatzako *iz* ahizpatzat hartzen dena.

Bost anaiez gainera Chico, Harpo, Groucho, Gummo eta Zeppo, adinaren arabera ordenatuta nire ama eta aita zeuden (egia esan haiek gure aurretik zeuden han), baita nire amaren aita eta ama, **ahizpatzakoa**, eta gau eta egun etengabeko joan-etorrian ibiltzen ziren ahaide pobreak ere. Berria - Kultura

---

ahizta ik **ahizpa**.

---

aho 1 *iz* gizakiengan eta animalia nagusiengan, ezpainetatik eztarrira hedatzen den barrunbea; edozein animaliak janaria hartzen duen irekidura; ahoa mintzoaren organo gisa; hainbat gauzaren irekidura, eskuarki sarbidekoa.

Batzuek aharrausi egiten dute, besteak zerurantz okertzen dira eta lazgarri oihukatzen duen **ahoa** zabaltzen dute. Koldo Izagirre

Ingura ezazu, ene jainkosa, zure gorputz donean pausatzen den hori, eta isur zure **ahotik** hitz gozoak, Erromatarrentzat, ene andreguren, bake nasaia eskatuz. Xabier Amuriza

Ezin dut deus ere esan; **ahoa** irekitzen badut, izan ere, akabo: orduan eta okerrago. Jesus Mari Mendizabal

Hatzen muturrek oihanaren hasiera nabaritu zutenean, korri egiteko gogoa izan nuen, baina Iratik **ahoa** gerturatu zuen eta berriro ere mihia sartu zidan. Lander Garro

Aho inguruko zimurrek eta hanka oker samar haiek ere ongi ematen zioten. Fernando Rey

Ahotik behera erori behar zutela gelditu ziren inguruko mutilek, eskuak bularrean jartzen zizkiguten beti neskek. Koldo Izagirre

Beldurrak erabat lakartu dit **ahoa**. Mirentxu Larrañaga

Beltzuri kolpe gogor bat bota zidan, hain gaixtoa non jotzen ninduela senditu bainuen: ez nuen meza denbora osoan **ahotik** tutik ateratu. Piarres Aintziart

Eta Bafforen poesiak arrazoi osoa ematen dio Apollinaire-ri: "gauza on, alai eta ederrez baizik ez dut hitz egin nahi, oso gauza gozoez: **aho**, bular, ipurdi, alu eta emeez". Anjel Lertxundi

Eurotariko hirugaz egoteko subertea izan neban, Andrakan bertan, euren aitaren barri etxekoen **ahotik** entzuteko. Xabier Amuriza

-Zer nahi? -galdetu zuen gizakoteak, **ahoan** janari hondarrak zituela. Aitor Arana

Gero **ahoan** sartu, eta hozkada leun bat eman zion mutur goriari. Aritz Gorrotxategi

Mantak begietaraino jasoak ditu eta, eztul egiten duenean, maindirea estutzen du **ahoaren** gainean. Jokin Muñoz

Ostiak **ahoan** ezin irentsirik zeuzkatela, bi tiroz akabatu zituzten hantxe bertan apaizak, eta kartel bana jarri zieten lepotik zintzilik: Inazio Mujika Iraola

Baliteke batzuetan kirtenkeriak egitea, baina **aho** honetatik ez da ezer aterako. Oskar Arana

Berak baina, irribarre akitua **ahoan**, hori konpontzea gizonen esku uzten duela edo antzeko zerbait esan du. Urtzi Urrutikoetxea

Bazkalordua pozarren igaro genuen, berak burruntzalia eskuan, nik koilara **ahoan**, jakiak zein baino zein ahogozagarriago. Javi Cillero

Fionnen ondoan, Mael zaldiaren lepo gainean makurtu zen, **ahoa** irekitzen zuelarik arnasa faltako balitzaio bezala. Joanes Urkixo

Gomitak zituen oroitzapen on edo txar gogoarazi badizkiet, memento berean entzule batzuk beren burua entzun edota ikusi dute gomitaren **ahoan**. Menane Oxandabaratz

-Hemen espedizio-burua kanpamentu nagusikoei, erantzun - esan zuen Mariak eskua **ahora** eramanda, irrati-aparailua simulaturik. Unai Elorriaga

Ordaindu, **aho** erdiarekin agur moduko bat esan eta jende artean galdu da. Alberto Barandiaren

Orduan inoiz ahaztuko ez dudan gauza polit bat egin zuen: gorputza nigana hurbildu eta musu eman zidan **ahoan** maitasunez. Aitor Arana

Goxoki bat biluzi eta ezpain artean ito zuen: sukrea berriz ere hortzetan isuri zen, pastak **ahoaren** irekiera trabatzen ziola. Itxaro Borda

Aliasek, han baitzegoen, malenkoniaz begiratu zion hegazkinari, baina ez zuen **ahorik** zabaldu. Josu Zabaleta

Gogor estutu zidan eskua, eta elkarrekin lotutako esku biei begira geratu zen lipar batez, irri bitxi bat **ahoan**. Juan Luis Zabala

Oihu bat jaurti zuten emakumeek, oihu bat eta bakarra, **aho** bat eta bakarra balute bezala, Joanes, kezkengatik baino ardoagatik zorabiatuago, zubi-hormara hurbildu eta estropezu eginez gorputz erdia ibai aldera kanpoan geratu zenean. - Felipe Juaristi

Estu besarkatu ninduzun kale-ertzean, **ahotik** lurruna zerizula. Harkaitz Cano

Nolanahi, Gondorko Jaunak hik susmatutakoa baino askoz gehiago jakin dik heure **ahotik**, Pippin. Agustin Otsoa

-Ez zagok oporretan - Ttipik Ximurraren petaka bere **ahora** hurbildu zuen, jabearen mutur beltzari kasurik egin gabe. Aingeru Epaltza

Amari eskutan zuen odolkia lurrera erori zitzaion hartan argi ibili zen Blanca, etxeko zakurra, jaki hura **ahora** eramateko. Xabier Etxabe

Eta bukatzeko, auzitegiko medikua bera harritzerainoko abilezia makabroz, bi begiak atera zizkieten beren zuloetatik, koilara txiki bat erabiliz, eta gero, erauzitako begiak **ahoan** sartu zizkieten. Karlos Linazasoro

Zigarro bat isiotu eta Eñauten **ahora** eroan dut. Sonia Gonzalez

Keaz gain legeak errespetatzen ez zituzten juduen lotsagabekeria ere atera zen ez dakit noren **ahotik**. Anjel Lertxundi

Denek eskuez txikitzen zituzten, eta **ahora** minutuko bost (amonak bederatzi), inongo lanik gabe. Joxean Sagaztizabal

Gogoan gorde ditut; gazte batzuk, eskopeta eta guztiz doaz, ortozik eta gerritik gora biluzik, pipa itxurakoak **ahoan**, irlako ekialdeko aldeko maldan gora, Robinsonen itxurak eginez. Edorta Jimenez

- Baina ardoa ere neurri batetik gora ez da hain ona - **aho** bete espageti bota zuen esaldia. Unai Iturriaga

2 irud/hed

Nikelezko hortz-ilarak zituen **aho** bat zen linotipia, irensten, xehatzen zuena. Lopez de Arana

Hura hilez gero, gu ere hantxe hilko ginen, ez baikenuen nahikoa indarrik leizearen **ahoko** harria mugitzeko. Juan Kruz Igerabide

Ushuaia aldapan izango da, Beagle kanalaren **ahoko** harri beltzen artetik sartzen diren ur urdingrisen bazterrean. Joseba Sarrionandia

Harrizko habia bat bezala zen, tximiniaren **ahoko** saretaren gainean jarria. Koro Navarro

Mattin Mottelaren zakua harturik, ezpataz urratu zuen **ahoko** lotura. Anjel Lertxundi

Mattin Mottelaren zakua harturik, ezpataz urratu zuen **ahoko** lotura, Jakobek, Rakel bere lehengusina eta Laban bere osabaren ardiak ikusi orduko, hurbildu eta putzu-**ahoko** harria mugiarazi zuen, eta bere osabaren ardiei edaten eman zien. Anjel Lertxundi

Gidari lanetan zihoazen txalupako hiruzpalau kortsarioek buruzagiaren manua bete, eta ibai-**ahoko** adar batean utzi gintuzten, bakar-bakarrik. Joan Mari Irigoien

Aho goxoak adiskideak ugaltzen ditu, mihi atseginak harreman onak gehitzen. Elizen arteko biblia

3 tresna ebakitzaile baten ertz zorrotza.

Izan ere, aizkoraren **ahoko** zati bat hautsi egin zitzaion. Berria - Kirola

Tenkatzea lortzen badu, estalkia, tunika eta jantzi ederrak emango dizkiot, eta baita azkona eta bi **ahoko** ezpata ere. Juan Kruz Igerabide

Bi **ahoko** ezpatak balira bezala, Wildek hitzen berezko esanahiarekin eta beste hitzekiko hurbiltasunak ematen dienarekin jokatzen du. Antton Olano

Gustu txarreko hitza iruditzen zaio berari, bi **ahoko** aizto baten modukoa, unea garrazten duena. Oskar Arana

Bota malgukidunez jantzitatako gizon bat zetorren agian Union Street aldetik, bi **ahoko** labana bat eskuan, ni nengoen lekura. Koro Navarro

Berriro lasaitu zen, dena ostera ongi zegoen segurantziarekin, eta belaunean zeukan katalogoari begiratuz sei **ahoko** labana baten irudia aurkitu zuen, Jamesek kontu handiz bakarrik ebakitzeko modukoa. Anton Garikano

Ezjakintasun hori "bi **ahoko** arma" dela uste du Ambrosek. Berria - Kirola

Bi **ahotako** aizkora baten gisa, egituretan bai-eta ekonomia eta sozial egoeran. Herria

4 (izenondoekin)

-Eta begi ederrak dituzu - esan zuen mutilak -, eta ile ederra, eta **aho** ederra. Mirentxu Larrañaga

-Ni baino ausartagoa izan duk, orduan, hire aita -esan zuen Francescok bere **aho** hortz gabea zabalduz. Josu Zabaleta

Zurrunbilo baten antzera, akordeoi-izurrekiko soineko gorri bat igaro zen haien aurretik: aurpegi obalatu txiki bat, ile kiribil marroiak mugaturik, nakarrezkoak ziruditen hortzak **aho** irribarretsu ireki batean. Lopez de Arana

Hasperen goiztiar batek alde egin zion **aho** nekatutik. Fernando Morillo

Rosek berriz **aho** handiegia zeukan, baina dohai zoragarria eskulanetarako. Anton Garikano

Bost "unikornio" ziruditen: zilar koloreko adar antzeko txano bana zeramaten buruan -bost argi tabernaren **aho** ilunean-. Aritz Gorrotxategi

Uharte batean zigante begibakar beldurgarriak dira; ondoko bateko jendeak burugabeak dira, begiak soinburuetan dituzte eta zaldien ferraren formako **aho** itsusi bat badute bularretan. Aurelia Arkotxa

Aitak Seulera eraman gintuen, esan zuen Uilek bere **aho** okertuarekin. Juan Kruz Igerabide

Estreinakoa, agure adiskideaz arduratzea izan nuen; huraxe, hilotz aurkitu nuena bi ilara harantzago, irribarre idor bat zuela **aho** zilarrezkoan. Karlos Linazasoro

Pistolaren **aho** beltza bere bularrari begira ikusi zuenean, hazi egin zela diote, harrotu edo. Joxean Agirre

Gelan hormetako berdea, aulki hutsa eta **aho** sikua. Unai Elorriaga

5. Musua **aho** zabalduarekin. Patxi Zubizarreta

Burdinaren **aho** kamustua zorrozten ez bada, ahalegin handiagoa egin beharko da; baina jakituria lortzeko are prestakuntza handiagoa behar da; bai eta honek ere. Xabier Kintana

Ezta Chicok ere ez zion ihes egiten utziko ahate bati tiramenean gertatzen bazitzaion, ozta-ozta bi urteko haurtxoa izan arren, **aho** txiki gorrikoa, begi handi eta bekain luzekoa eta, aingerutxo baten antzeko ile-kizkurra. Koldo Biguri

Belarri idortuak zituen, kartoizkoak iduri, betondo ilkiak, eta **aho** erdi irekian hortz handi horiak ageri zituen. Matías Múgica

-Neskameak - zuzendu dio, **aho** txikiarekin. Arantxa Iturbe

Gurasoek (lur jota baitzeuden, esan beharrik ez dago) behin eta berriz galdetzen zioten psikologoari zer zela-eta erakutsiko zuen Amaiak, hilzorian zegoela, halako irribarre xaloa bere **aho** urdinduan. Josetxo Azkona

Euskal Herria, **aho** txikiarekin aipatzeko zerbait.->01Zall01¬81<-Zilueta gardenak zituzten, urdin hits kolorekoak, eta beren artean hizketan ari zirela ematen zuen, haien **aho** ubeletatik hotsik ateratzen ez bazen ere. Ana Urkiza

Aitak berrogeita hamar urte inguru izango du: ilea bakantzen hasia, baina ez burusoila, ile-gorria, bibote lodiak **aho** oraindik gordinaren inguruan ia gakotuak, ahoa sarri irribarre ziurgabe geldo batean irekia. Josu Zabaleta

Ireki **aho** polit hori eta hitz egin; nik edateko zerbait bilatuko dut bitartean! Xabier Paya

Santuen aurrean pasatzean ikaratu egiten nintzen, edo konfesionarioetako errezela granateen aurrean, edo erdi irekitako **aho** beltza erakusten zuten ateen aurrean. Pako Aristi

Gizon luze eta meharra zen, kapusai horia zeraman, zenbait eguneko bizarra eta **aho** fina, umore txarrez egotearen itxura ematen zioten zimur sakon biren erdian. Urtzi Urrutikoetxea

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta **aho** zokoan josirik zebilkigun gasna klikatuaren gustu minberan aurkitzen genukeen ihardespen existentzialaren zati bat. Itxaro Borda

korrika eta **aho**-galgarik gabe doazen zaldi-zurdak Felipe Juaristi

Eta gizonari, **aho**-ertzetik, odola. Anjel Lertxundi

Aho-bazterra mugitu zuen. Unai Elorriaga

Mutilak zitalkeriaren bat aditu du, **aho** azpiz. Aingeru Epaltza

Eta halako imintzioa egin zian begiak trabes eta **aho**-ipurdi eginez, eta haur kikilduaren ahotsa! Barreari ezin eutsizkoa! Josu Zabaleta

Harea nabaritzen duzu **aho**-eztarrian. Xabier Montoia

Marisaren **aho** alboetako marra ilun haiek, zure aurpegi gaztea, zure azal lodia. Lourdes Oñederra

-Aho-eitea da, ahoaren forma, ezpainak mugitzean, hortzak doi bat agertzean eta irriño bat egitean, ahoakeskaintzen duen grazia. Menane Oxandabaratz

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez zeukaten krabelinik fusil-**ahoetan**. Edorta Jimenez

Eta, hara heldurik, leize-zulo bat aurkitu eta bertara sartu zituen Jeremiasek oihal-etxola, kutxa eta usain-gozoen aldarea, eta leize-**ahoa** itxi. Elizen arteko biblia

Etxekoandreak estalki bat hartu, putzu-**ahoaren** gainean ezarri eta ale garbitua zabaldu zuen gainean; ez zen deus ere igartzen. Elizen arteko biblia

Ezpata-**ahoz** hilko dituzte eta nazio guztietara eramango gatibu; Jerusalem jentilek zapalduko dute, jentilentzat Jainkoak erabakitako garaia erabat bete arte. Elizen arteko biblia

Eta burua jiratu zuen, ibaiaren handitasunari so egiteko, ibaia aizto-**ahoz** beterik zegoela baitzirudien, hain ere zen distiratsu. Lopez de Arana

Epaileak inbutu baten muturretik oihu egiten zion eta haren ezpain kolorgeak kanporantz eta barrurantz mugitzen ziren arrain-**ahoak** bailiran. Lopez de Arana

Kokots-kokotsean haztatu ninduen lehenik, sabel-**ahoan** gero eta berriz ere kokotsean hondarrik. Aingeru Epaltza

Bisutsa ari zuen; zerua, otso-**ahoa** balitz bezala, beltza eta itxia ageri zen. Felipe Juaristi

Ederki moldatu zen Albert 5. lerroko metro-**ahoaren** aurretik pasatu zirenean abiada moteltzeko; Piramideen geltokia zen hura. Jon Muñoz

Bizirik daude, geldi-geldi, norbaitek ukitzen dituen arte, beren sugandila-**ahoak** lasto-hariz ongi estekatuak, oso ausikitzaileak omen baitira: haien haragiak, egositakoan, oilaskoaren zaporea omen. Joxe Austin Arrieta

7 *aho artatzaile*

-Jesus Jubera, **aho-artatzailea**, 55 urte. Herria

8 *aho barru* ahoaren barrualdea.

Harkaitz beltz garaiak ia inguru guztian, sumendi hondatuaren **aho barru** horretan, eta fabrikara heldu orduko ulertuko duzu uraren gorria odola dela. Joseba Sarrionandia

Barratik irten gabe, hatz zarpail eta maskulinoekin bordeauxa kendu eta **aho barrua** arakatu dit. Eider Rodriguez

Txokolatearen dasta garratza miazkatu nuen **aho barruan**, zuku guztia atera nahian bezala. Juan Kruz Igerabide

Koldo nahiko mozkortuta zegoen, mingainak laban egiten zion **aho barruan**. Sonia Gonzalez

Adurra egin eta **aho barruan** bildu nuen. Joseba Sarrionandia

Ustezko hilotzari **aho barruan** sartu zioten porruaz ari nintzen. beheko ezpaina **aho barrura** sartzeko eta hozkatzeko era. Jon Alonso

9 *aho bateko* *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **ahobatezko** agertzen da)*

Aho bateko eskariei kasurik ere egin gabe.

Izan ere, gurasoen iritzi **aho batekoaren** arabera, jaioberritze modu bat da bataioa. Antton Olano

Eta nik ez dut **aho bateko** aberririk nahi. Joxerra Garzia

Epaia **aho batekoa** izan zen: heriotza. Iban Zaldua

Immigrazioan, mugen zaintzan, Justizian eta polizien arteko elkarlanean adostasunak **aho batekoa** izan behar duela jasotzen du Konstituzioaren zirriborroak. Berria - Mundua

Atzo bederen xanpaina izan zen guztiontzat eta igoerak **aho batekoak** izan ziren Ibex-35eko akzioen artean, 1.140 milioi euroren salerosketa lagun. Berria - Ekonomia

Hau da objekzioa hain **aho batekoa** izatearen kausa, eta espazioaren idealtasunaren irakaspenaren aurka ezer argigarririk aipatzen ez dakitenen aldetik gainera. Ibon Uribarri

Halako akatsen bat zerebeloan izatea, haren ustez, esanguratsua da autismoan, zientzialarien iritzia puntu horretan **aho batekoa** ez bada ere. Xabier Olarra

10 *aho batez* *adlag* inor aurka ez dagoela.

Aho batez, prentsan, irrati-telebixtetan, goraipatua izan da Richard Virenque lehen heldu baita Ventoux mendi famatu eta mitikoaren kaskora. Herria

Jakin ezak guk guztiok **aho batez** erabaki dugula txikiari Tommo deitzea. Mirentxu Larrañaga

Aho batez aitortzen dute etnologoek unibertsala dela intzestuaren debekua. Juan Garzia

Gau-bilera iskanbilatsu baten ondoren, bi-biek **aho batez** hartu zuten ni barne-ikastetxe batera bidaltzeko erabakia. Jesus Mari Mendizabal

Aho batez izendatuak izan dira. Herria

Kongregazioko apez gehienak Hazparnen izanez urteko erretretarentzat elgarrekin mintzatu zirela eta **aho batez**, bakar batek huts egin gabe, erabaki zutela Batikanon eskatzea "exemzioa". Xipri Arbelbide

Esaten badidazu: grabitatea egia da **aho-batez** onartutako ideia delako, ezetz esango dizut; grabitatea **aho-batez** onartua da, egia delako. Josu Zabaleta

Azken aldian prentsarako artikuluak idazten zituen, baina argitaratzaileek, **aho batez**, atzera botatzen zizkioten eskuizkribu guztiak. Koro Navarro

Bi herri-elkargoek ere (Garazi-Baigorri eta Iholdi-Oztibarrek, erran nahi baita 33 herrien ordezkariek) **aho batez** kontra bozkatu dute. Herria

Edateko, txakolina hitzartu zuten **aho batez**, Luigiren gomendioari ameto emanda. Josu Landa

Filma ikusi zuen jendeak **aho batez** zioen eszenak errealismo handikoak zirela. Anjel Lertxundi

Herri osoak, **aho batez**, oihukatu zuen: -Gora erregea! Elizen arteko biblia

Biek, **aho batez**, esan zuten: "Amen, amen!". Elizen arteko biblia

Prentsa idazpuruek **aho batez** salatzen zuten otsailaren 13an: "... Txillardegi

Horrela, bihotz batez eta **aho batez** goretsiko duzue Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita. Elizen arteko biblia

Hirian **aho batez** onarturik zegoen dama guztiz atsegina zela edonondik begiratuta ere. Jose Morales

Hiriko gorrien samaldak **aho batez** egin zion oihu: [...]. Koldo Biguri

-Desagertu? -galdetu zuten bi gizonek, **aho batez**. Elena Touyarou

Orduan herri osoak agindu zuen **aho batez** egunero emango ziotela jaten. Askoren artean

Dena dela, eta uste izatekoa denez, erabakiok ez ziren berehala eta **aho batez** onartu. Koldo Zuazo

Haren auzia herenegun jujatu zuten, eta **aho batez** du galdu. Jon Muñoz

'Penalti!' oihu egin zuten ia **aho batez** Emilio erori zenean, Inazitok zangalatraba eginda. Joseba Sarrionandia

Legegabekoa eta faxista izan zela esan dute, baina ez **aho batez**. Hasier Etxeberria

11 *aho-bero* *(ETCn **90** agerraldi; orobat **ahobero** ETCn **570** agerraldi)* izond mintzatzean, jarduna puztua eta areagotua azaltzen dituena. ik **ahobero**.

Ongi bai ongi ahalegindu zen jende **aho-beroa** hutsune hura betetzen, gizona gure auzoan izan genuen bitartean. Joan Mari Irigoien

Unaik osabaren ogibidea eta zaletasunak nahasten zituen, inondik ere, Kristina **aho-beroaren** marmarien ondorioz. Aingeru Epaltza

- **Aho-bero** bat delako: tipo ezatsegin bat, emakume guztiak maiteminduta dauzkala uste duena. Josu Zabaleta

· *(adlag gisa)* Prokuradoreak haren doinu ironikoari ez zion kasu izpirik eman eta aitzina jarraiki zuen, **aho bero**. Elena Touyarou

Aldiz, ezker aldean dagoen gizonak penitentzia guti egunero, iduriz, hain dago alegera eta **aho bero**. Piarres Aintziart

-Herri honetan gauzak aldatzen hasiak dira, eta anitz aldatuko dira oraino -segitu zuen **aho bero**, bere hoztasunean murgilduz-. Elena Touyarou

· *(izen gisa)* Amak, halakoetan, aitaren **aho beroa** bridatu nahi izaten zuen, kontu haiek haurroi onik egingo ez zigutelakoan. Joan Mari Irigoien

12 *aho berokeria* ik **ahoberokeria**.

Kalte handirik ez da, **aho berokeria** horiek ni bezalako baten belarriak baino entzuten ez baditu. Karlos Zabala

13 *aho bete haginekin gelditu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Eta ez zuela inoiz esan aldi berrian euskara hutsez hasiko zenik, eta beraz, ez zuela zertan **aho bete haginekin gelditu**. ETC-literatura, saiakera

14 *aho bete haginekin geratu* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Aho bete haginekin geratu nintzen. ETC-prentsa

"Zorba", esan zioat orduan neure buruari, "guardia emak oraintxe, adiskidea, **aho bete haginekin geratu** behar duk eta!". ETC-literatura, saiakera

15 *aho bete haginekin utzi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Herenegungo zure artikuluak **aho bete haginekin utzi** gaitu Bizkaiko bertsolari gazteok. ETC-prentsa

16 *aho bete hortz* ahoa bete hortz.

Joxe Marik makilak saskira bota, eta atzetik jarraitzen zion, ondotik zezena balu bezala, ni aho bete **hortz** hantxe utzita. Juan Kruz Igerabide

-Urte hasieran! -aho bete **hortz** nengoen-. Alberto Ladron Arana

17 *aho bete hortz gelditu*

Kandelen ametsezko garrek argitzen zutena ikusi nuenean, **aho bete hortz gelditu** nintzen. Alberto Ladron Arana

Bigarren Maila jardunaldiz jardunaldi jarraitu ez dutenak **aho bete hortz geldituko** dira sailkapena aztertuz gero. Berria - Kirola

Aho bete hortz gelditu zara. Xabier Montoia

Aho bete hortz gelditu nintzen; izan ere, ederki ezagutzen bainuen nik Angelak bere aitaordea bezala aipatu berri zidan gizon hura: hura Errege Beltza zen. Alberto Ladron Arana

18 *aho bete hortz utzi*

Horixe esango zioten Untzaini ere, ziur; euskaldun gehienak Francoren alde zirela, eta datuak erakutsiko zizkioten, edo niri bezala galde egin: nafarrak ez al dira baskoak? Gizon gazteak **aho bete hortz utzi** nau. Edorta Jimenez

Beren automobilak garajeetan aterpetzeagatik nire eskutik kanpo daudela uste dutenak ere **aho bete hortz utzi** izaten ditut: asteburuz atzematen dizkiet futbol zelaiko aparkalekuan edo ohiko jatetxe ezagunetako atari ondoan. Aingeru Epaltza

Aho bete hortz uzten ninduten Dodoven arrazonamenduek, ez nuen uste lorazaina hain idiota zenik. Karlos Linazasoro

(Nik aitortzen dut, eztabaida politikoan hori egun batean -hemen behin baino gehiagotan aipatu euskal idazle bati irakurtzen diodanez- "deskubrimendu" bat bezala deskubritzera iristen denaren mentalitate erremedio gabe metafisikoak, **aho bete hortz uzten** nauela). Joxe Azurmendi

Sei geroago, **aho bete hortz utzi** zituen oihuka egoskor jarraitzen zuten gutxinaka batzuk. Berria - Kirola

Neurketa berezia izango da Prietorentzat, iaz **aho bete hortz utzi** baitzituen Bernabeuko ikusleak bere jokoarekin. Berria - Kirola

Litezkeen zorigaitz guztiak gertatzen zaizkio eta, gainera, haren jokabide absurdoak **aho bete hortz uzten** ditu eleberrian agertzen diren gainerako pertsonaia guztiak. Berria - Kultura

19 *aho bete hortzekin gelditu* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Nemesioren hitzak gogoratu zituen: "Lehengoan Urlia andereño erremin hori **aho bete hortzekin gelditu** zitzaidan". ETC-literatura, saiakera

Aho bete hortzekin geldituko ziratekeen jakin izan balute elementu erradiaktibo ezezagun horren milioirena ere ez duela pekblendak. ETC-literatura, saiakera

Coco Chanelen dendan sartu ginen eta arduraduna **aho bete hortzekin gelditu** zen nire soinekoa ikusi zuenean. ETC-literatura, saiakera

20 *aho bete hortzekin utzi*

Goiz horretako Josu ezagutezinak suelto segitzen zuen, ni **aho bete hortzekin uzteko** eginahaletan. Aingeru Epaltza

-Norma Lúcia, handia zara gero, **aho bete hortzekin utzi** zenuen unibertsoa, garai hartan bizi izan zirenen unibertsoa behinik behin -, bada, baietz, zerbait ere emango ziola. Karlos Zabala

Hargatik ez zuen **aho bete hortzekin utzi** emakumea, lanean zebilelako, eguneroko ogiaren bila. Migel Angel Mintegi

21 *aho betean* *(orobat **ahoa betean**)* aho beteka, ahoa zabal.

Garbi dago, **aho betean** aitor dezadan, oraingo bizi berri honek, aski ditudan otordu urri hauek, guztiz dagokidan basa-egoitza honek, eta negua iritsi aldiro neure baitan hotzari aurre egiteko sumatzen dudan erraztasun harrigarri honek, honek guztiak ez didala nire lehengo bizimoduko alderdi tamalgarrienak minez oroitzen uzten. Joxan Elosegi

Jendeak **aho betean** iraintzen nau, masailakoz betetzen: denak batera nire kontra. Elizen arteko biblia

Tobias etxera sartu zen pozik, Jainkoa **aho betean** goretsiz. Elizen arteko biblia

Aho betean mintzo zen, gazta zati txikiak egiten zituen arren, bata bestearen ostean sartzen baitzituen ahozulora. Unai Iturriaga

Pasatu nintzen -onartu zuen **aho betean** On Camillok. Koldo Biguri

Lege-maisu izan nahian, esaten eta **aho betean** irakasten dutena ulertzen ez badute ere. Elizen arteko biblia

Han ikusi behar zenuen egun batzuk geroago Julio etxean, Niniri gutunak itzultzera joanda, untxiaren irribarrearekin, amak **ahoa betean** esaten zionean don Prudenciok ez dakit zenbat mila duro zituela eta lur sail bat zuela halakoan eta beste bat bestelakoan eta. Josu Zabaleta

Siriarrak ekialdetik, filistearrak mendebaldetik. **Ahoa betean** irentsi dute Israel. Elizen arteko biblia

Barre eta negar **ahoa betean** egiten duten horietakoa. Jokin Muñoz

22 *aho beteka* ahoa betea duela; argi eta garbi.

Hori ikusiz, Jean-Pierre Raffarin gobernuburua aise arizan da **aho beteka** erran eta erran, dena afera eta dena espantu, emendagailu horiek denak behar izan balire xeheki aztertu, zonbait hilabeterena izanen zela! Herria

Hautagaiak gutarik hurbilago sendi ditzagun egina izan den jokoa omen, hala diote **aho beteka** hor gaindi, bainan ez ote da izaitekotz jukutria bat alderdi "ttipien" aintzina apaltzeko eta ahalaz baztertzeko? Herria

Ixabel txikiak **aho beteka** jaten segitu zuen, bere esku ñimiñoekin. Aingeru Epaltza

Produktoreetako bi oso kezkatuak zeuden izarren berehalako grebarekin, eta **aho beteka** aitortzen zuten. Fernando Rey

Aztoratua, hiruretara deitu nuen, **aho-beteka** ahal bezainbat xehetasun emanez tokia errazago aurki zezaten. Daniel Landart

Hala usteko du noski, zure bizi-denborako eta hil-ondoko ipurgarbitzaileen samalda azkengabeak, hitz zuri faltsua **aho-beteka** botatzen bestetan ez dakien jende-modu horrek. Iñaki Segurola

Besta bukatzean, zoriona **aho beteka** irentsi eta urrikal-ezin, lagunak inguratzen zitzaizkion, gizon-gaiak laztanki musukaturik, agudo eta irriz karkailaka etxeratzeko. Itxaro Borda

Denek ezagutzen dugu hitzetan hirukote famatua: Askatasuna, Berdintasuna, Anaitasuna, **aho beteka** gure politikariek derasatena. Herria

Frantsesak errepublikanoak dira, maite dute errepublika, noiz nahi aipatzen dute, **aho beteka** , Herria

23 *aho beteko*

Eta hala eginda, zer nolako bermea dute, erantzukizun hitzaz gainera, euskaldunen hitza edo euskaldunen borondatea bezain deskribagaitzak diren **aho beteko** esapideek? Anjel Lertxundi

24 *aho betez* aho beteka.

Eta orain, bihotz-bihotzez eta **aho betez** , kanta eta bedeinkatu Jaunaren izena. Elizen arteko biblia

Begira zuen alde zer egin duen eta ospa ezazue **aho betez** . Elizen arteko biblia

Lurrazalera irten zenean **aho betez** hartu zuen aire hotza, dastatuz. Iñaki Zabaleta

Aho betez baieztatzen dut, gaitzarekin batera hasi zela ordena. Imanol Unzurrunzaga

Euskaraz hitz egiteko irrikan zen, bere hizkuntza **aho betez** erabiltzeko gogotan. Iñaki Zabaleta

25 *aho biko* *izlag* bi aho dituena; bi alde edo ertz dituena.

Tiriki tauki taki / Mailuaren hotsa, / Zu hortik ni hemendik / **Aho biko** trontza. Koldo Izagirre

Idatz iezaiozu Pergamoko eliz elkartearen aingeruari: Hona zer dioen **aho-biko** ezpata zorrotza duenak: [...]. Elizen arteko biblia

Aho-biko ezpata da edozein bidegabekeria, zauritzen bazaitu ez dago osabiderik. Elizen arteko biblia

Gure gizarte **aho biko** honek badu horrentzat ere erantzun egokia. Joxerra Garzia

Aho biko mintzoa darabil, baina aho baten jarduna bakarrik entzuten dugu. Joxerra Garzia

Hi oso konformatze errazekoa haiz, Dodov", esan nion **aho biko** ironiaz, garrasi egiteko puntuan, baina hark ez zuen nire ironian ez ironiarik ez aho bikorik ez pitorik

antzeman, eta esan zidan bera tipo xinglea zela, ekialdeko bizi-eskolakoa. Karlos Linazasoro

Hain da ziurra egiazko errealitateak uste faltsuari aurre egiten, irtenbide oro ixten eta **aho biko** errefutazioz okerra aitorrarazten diola. Xabier Amuriza

26 ***aho bizarrik gabe*** itzulingururik gabe.

Herriaren alde mihia **aho-bizarrik gabe** dantzatzera ausartu ziren haien omenez. Martin Anso

Aldaketaren jarrera hori ezohikoa da gurean, egilearen arabera: «Euskal literaturan idazle gehienak progresistak, aurrerakoiak eta iraultzaileak dira, baina gero literatura egiteko moduan oso konformistak eta kontserbadoreak dira», azaldu zuen **aho bizarrik gabe**. Berria - Kultura

Edorta Jimenez idazleak **aho bizarrik gabe** egin du edizio elektronikoaren aldeko aldarria: [...]. Berria - Harian

El Mundo **aho bizarrik gabe** aritu zen: [...]. Iñigo Aranbarri

27 ***aho-burdina***

Mikel Strogoffek zaldiari **aho-burdina** jarri, zelako zingila tenkatu, estribuen uhalak aztertu, eta emeki-emeki hasi zitzaion tiraka bridatik. Karlos Zabala

28 ***aho ganga*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hala, zaporez Erronkariko gaztak sendoa izan behar du, apur bat mina, gantzatsua eta **aho gangan** zapore iraunkorra uzten duena. ETC-prentsa

29 ***aho-gingil***

Horrelakoetan, **aho gingila**, sabai bigunaren azkena denez, gora eta atzera biltzen da, sabai bigunaren mugimenduari jarraiki. Lourdes Oñederra

Sudur barrunbea organo erabat geldia da; d **aho-gingilak** oztopa dezake airea igarotzea, beste ezerk gehiago ez; organo hau zabaldua edo itxia egon daitekeen ate bat da. Isabel Arrigain

Erraza zen bere txilibitutxoa goxatzea ahoan inolako trabarik ez zuelako topatzen, ez baitzen **aho gingilera** ere iristen. Aitor Arana

30 ***aho-handi*** *izond* aho handia (eskuarki *irud)* duena.

Laguna jakinean egonen ote zen, ezbairik batere ez nuen, lehendik ez bazen, ortzegunean berean ikasia, Ximurra **aho-handiak** ekarri baitzuen solasera. Aingeru Epaltza

Ahantz zaitez agure **aho-handi** honen kalakaz. Aingeru Epaltza

Eskuineko politikari **aho-handiek**, aberatsen sustengatzaile lehenak, nagusigo liberalaren fidelis canis leialenak, pobrezia alferkerian oinarritzen zutenak, enplegu mota horren jendetza osoari hedatzea amesten zuten. Itxaro Borda

"Hago isilik, **aho-handi**!". Aingeru Epaltza

Arduragabea da Joxe, **aho handia**, traketsa; eta arduratsua Eider, burutsua. Berria - Kultura

-Senarrik ere ez, **aho-handi** arraioa! Aingeru Epaltza

31 ***aho-handikeria***

Aho-handikeriarik gabe aitortzen du ondarrean Turowicz kasetari zintzoak, ez direla Poloniaren urte latz horietan hoben guziak besteren gain eman behar. Herria

32 ***aho-kirats***

Baina haiek begirunez tratatzen nituen, ez bainuen inoiz erretzen haien aurrean; are gehiago, kontsultan beti zupatzen nituen limoizko edo mendazko goxokiak, **aho-kiratsik** usain ez ziezadaten. Joan Mari Irigoien

33 ***aho korapilo***

Haur poesian, Auskalo! Igarkizun eta **aho-korapiloak** (Pamiela, 2001) eman zuen argitara Pupuan trapua saritu berriaren aurretik. Berria - Harian

Herri hizkuntzan txertatutako esaera hauetaz gain, edozeinek **aho korapilo** berriak asmatzeari ekin diezaioke. Iñaki Arranz

34 ***aho korda*** ahots korda.

Etxera itzuli zenean, izebak esan zion, aho-**kordei** ia eragin gabe, hil egin zituztela herriko bost gazte. Eider Rodriguez

Neskatoak ondo zituela **aho-kordak** eta ez zirudiela burutik gaizki zegoenik ere. Felipe Juaristi

-Esan eeeee -agindu zion Aldabak tutua **aho** - **korden** artean kokatu zionean. Hasier Etxeberria

35 ***aho-legar*** ahoko mukosan gertatzen den ahoko mukosan gertatzen den ulzerazio txiki zurixka. ik **afta**. *irud/hed*

Aho-legarrik gabe kritikatu du Alemaniak duen politika, armak ematen baitizkio Ankarako gobernuari eta, horrela, "herri kurduaren genozidioan laguntzen". Fernando Rey

36 ***aho-mihi*** *(orobat **ahomini** g.er.)* ahoa eta mihia.

Umetan ikasi nuen huraxe da barrengo koskorretatik **aho-mihietara** datorkidan mintzoa. Iñaki Segurola

Orduko, denen **aho-mihietan** zebiltzan nire pistola eta nire ezpata, Akademian sartzean kendu zizkidatenak. Aingeru Epaltza

Gainera amoranteak bazuen herrian askoren **aho-mihietan** oso erabilia izan zen gorabehera. Gotzon Garate

Denen **aho mihitan** zebilen solasa: [...]. Herria

Emaztea eta bien artean berealdiko iskanbilak pizten ziren eta denen **aho mihitan** zebilen, eskandalagarri, batik bat Buxi doktorearen eta Um Hamidaren ahotan. Patxi Zubizarreta

Kasik denen **aho mihitan** baitabil erran hau: *gizakia gizakiarentzat Jainko.* *Piarres Xarriton*

Hotsik gabeko hitza, esanahiaren sasiak jana, **aho-mihiz** ebaki baino lehen noraino iritsiko den ikusia dagoena. Iñaki Segurola

Eüskaldünek ez dügü hainbat irakurten eüskaraz, eta hüts berriak burrustan hedatzen ari zaigü **aho-mihiz**. Herria

Xedea **aho-mihizko** bertsülarigoaren piztea beita Xiberoan. Herria

Nehork ez zituen holako hipotesiak bere gain hartu nahi, egiazko **aho-mihi**-zintzurreko plazerra denek gozatzen bazuten ere holakoen salatzean. Michel Oronoz

37 ***aho-mihitan***

Erakutsi berri duguna, esperientziak berak ere adierazten du, egunero, horrenbeste lekukotasun argigarriz non, kasik denen **aho mihitan** baitabil erran hau: gizakia gizakiarentzat Jainko. Piarres Xarriton

Nork edo nork erranen digu beharbada oraingo apezek ez dutela holako larderiarekin predikatzen eta ez dela haien **aho mihitan** sekulan ifernurik entzuten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Arima hilak erosten bazituen, aldiz, zer zela-eta bahitu nahi zuen gobernadorearen alaba?, arima hilak oparitu nahi al zizkion?, zer-nolako zentzugabekeria zen hiriko biztanle guztiek **aho-mihitan** zerabilten autu hori? Jose Morales

Horrela, bada, ama-alabak luzaro aritzen ziren ezbaian haragi-plater baten aurrean, eta hauek ibiltzen zituzten **aho-mihitan**: pobreak eta aberatsak, ezkerrak eta eskuinak, Stalin, apaizak eta Jesus. Fernando Rey

Etxalde aipatua zen Garaten sortetxea, Pikasarria, eta jendeen **aho-mihitan** Pikasarri zen beti haren ardurako izena. Xipri Arbelbide

Jainko hautsi bat da, bi buruko mustro bat, euskarazko jendearen **aho-mihitan** berez behar lukeen bat-bakartasuna galdutako jainko gaixo bat. Iñaki Segurola

Hots lau kutxa sozialetan hurbiltasuna **aho mihitan** darabilate eten gabe baina frantsesez. Herria

Denbora luzea zen bera **aho mihitan** hartua zutela. Patxi Zubizarreta

38 ***aho-mihitan erabili***

Arima hilak erosten bazituen, aldiz, zer zela-eta bahitu nahi zuen gobernadorearen alaba?, arima hilak oparitu nahi al zizkion?, zer-nolako zentzugabekeria zen hiriko biztanle guztiek **aho-mihitan zerabilten** autu hori? Jose Morales

39 ***aho-mihitan hartu***

Muturluzeak auzia trufaz eta erdeinuz **aho mihitan harturik** irudikatu zituen. Patxi Zubizarreta

40 ***aho-mihiz***

Aho-mihiz ari ote zena Etxahun Barkoxe? Horren probarik ez dügü. Herria

Eüskaldünek ez dügü hainbat irakurten eüskaraz, eta hüts berriak burrustan hedatzen ari zaigü **aho-mihiz**. Herria

Hitz hezi irendu horixe da teologoek eta teleologoek maite dutena, hotsik gabeko hitza, esanahiaren sasiak jana, **aho-mihiz** ebaki baino lehen noraino iritsiko den ikusia dagoena. Iñaki Segurola

41 *aho-mihizko*

Aho-mihizkoez ari niz, eta ez izkiribüzkoez. Herria

Koraje hori üken düe, ontsa elki dira zepotik, eta ez ahal dira hortan baratüko! **Aho-mihizko** jokü zaharra Xiberoan arrapizten ari dela üdüri lüke azkenean, eta nor ez da hortaz boztüren? . Herria

42 *aho-pieza*[1] *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Aho-pieza: Tronboi jotzaileak putz egiteko erabiltzen duen pieza da. ETC-entziklopedia

Kendu zion hautsa **aho-piezari** eta tronpetaren zuloari. ETC-literatura, saiakera

43 *aho-pieza*[2] *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Estu atxikitako kaparrak leunki erauzi behar dira forzepsa erabilita; kontuz egin behar da, eta **aho-pieza** guztiak kendu direla ziurtatu behar da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aho-piezak moldatuta dituzte larrua zulatu eta odola zupatzeko; iteulia eta ezpara lekuko. ETC-literatura, saiakera

Aho-piezak dira buruko parterik aldakorrenak, nahiz eta kasu guztietan hiru apendize-pare diren: baraila-pare bat, maxila-pare bat eta bigarren maxila-parearen fusioz itxuratutako behe-ezpaina. ETC-entziklopedia

44 *aho puzker*

Koronelari aho-**puzkerrak** egin genizkion egunean bezalatsu. Mirentxu Larrañaga

Peevesek ez zion jaramonik egin Lupin maisuari, aho-**puzker** ozena botatzeko izan ezik. Iñaki Mendiguren

Aho-**puzker** zaratatsuak egin genituen joan bagindoazela. Mirentxu Larrañaga

45 *aho sabai* *(ETCn **268** agerraldi; orobat **ahosabai** ETcn **694** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ahosabai** agertzen da)* *iz* aho barrunbearen goiko aldea, eztarriraino zabaltzen dena. ik **ahosabai**.

Bere indar guztiarekin hondo-hondoraino, heldulekuraino, sartu zuen ezpata sugearen **aho-sabaian**. Iñaki Mendiguren

Txokolatetxo bigundua likatu zitzaidan **aho-sabaian**. Anjel Lertxundi

Aho sabaian errautsaren gustua egiazki gozo zitzaidan. Itxaro Borda

Lehor-lehorrak nituen eztarria eta **aho-sabaia**. Koro Navarro

Ur bihurturik zeukan **aho-sabaia**. Jose Morales

Dastamena deritzogunak, mihiak eta **aho-sabaiak**, arrazoitze handitxoagoa behar dute, ahalegin handiagoa. Xabier Amuriza

Aho sabaiarekin zer ikusia duten hotsetan, belarriak, eskuarki, aurreko artikulazio bat (sabaikariak) eta atzeko bat (belareak) bereizten ditu. Isabel Arrigain

Aitorri egindako bisitak, betiko legez, zapore arraroa utzi dio **aho-sabaian** itsatsirik. Sonia Gonzalez

Erbestearen garratza uzten du **aho sabaian**, negua baitu laranjak aberri eta amets. Joxerra Garzia

47 *aho soinu* ik **ahosoinu**.

46 *aho sexu*

Lekukoaren arabera, 2004. urtearen hasieran Merinok espetxe onurak eskaini zizkion **aho sexuaren** truke edo harekin larrutan egitearen truke. Berria - Euskal Herria

Zakarias, alboko mutikoa ilargira iristen den eguna arte ez duzu **aho sexurik** izango... Patxi Zubizarreta

Voyeurismoaz, **aho sexuaz**, masturbazioaz, sadomasokismoaz, lesbianismoaz eta orgiez idatzi du, poetikoki baina hotz. Berria - Kultura

48 *aho soka* aho korda.

Glotisa, bi gihar paraleloz -hau da, bi **aho sokaz** - osatua dagoena, iriki edo itxi egiten da sokak urrundu edo hurbildu ahala. Isabel Arrigain

Lehen kasuan, haizea oztoporik gabe igarotzen da, eta **aho sokak** ez dira dardaratzen. Isabel Arrigain

49 *aho uhal* *(orobat **ahouhal**)* ahoko uhala.

Ahmetek zaldiaren **aho-uhalei** heldu zien. Fernando Rey

Gero, agurearengana itzuli zen, eta hark emandako **aho uhalak** ipini zizkion mandoari. Patxi Zubizarreta

Aho-uhalak, urrezko hariz txirikordatuak, korapilatuak zeuden zelaren nakarrezko kokotsean. Fernando Rey

Min eman zion erantzun honek Don Kijoteri, eta **aho-uhaletik** helduaz, esan zion: [...]. Patxi Ezkiaga

Geltokiko buruak **ahouhaletatik** tiratu, trostan usategiraino joan eta gora begira oihu egin zuen: [...]. Fernando Rey

50 *aho-xuri*

Hitz errazekoa, aho-**xuri** eta ele-ederra. Joan Mari Irigoien

-Ea, aho-**xuri**, ezti ezak oraindik gehiago mingain likits hori! Anjel Lertxundi

51 *aho zabal* *(orobat **aho-zabal**)* *izond* ahoa zabala duena.

-Hau da hau, zuek biok elkar ezagutzea -esan zuen ahots ozenez, bi neska begi-gorrien eta mutiko **aho-zabal** geldiaren parean jarrita. Koro Navarro

Etxean edozein **aho zabal** gutxiesten anitzetan entzun dut. Itxaro Borda

Orduan, Zebulek: -Non duk heure harrokeria, **aho-zabal** horrek? Elizen arteko biblia

· *irud/hed* Zapata **aho zabalak**, galtza lisoak eta belusezkoak, belaunburuetaraino luze eta han hari finez itxiak. Felipe Juaristi

Mitologia islamikoaren irudi arkaiko baina adierazgarrietan eliza, bere historiako aldi heroiko honetan, Mahoma profetaren gorabeherekin alderatu genezake, zubia -labanaren ahoa bezain estua, eta paradisura sartzeko bide bakarra- infernuko leizezulo **aho-zabalaren** gainetik ibilera sendoz zeharkatzen duen aharia bezala. Iñaki Mendiguren

Léonek, eskuin eskuarekin, heste hutseko zati luze bati eta haren muturrean sarturiko onil **aho-zabalari** eusten zien. Karlos Zabala

Atun eta sardina latak ageri ziren, bai eta saltsak, boilur kontserbak, barazki beratuez egindako ongailuak ere, botila lepamotz **aho-zabal** batzuetan sarturik. Karlos Zabala

52 *aho zabalik* *(orobat **aho-zabalik**)* erabat harritua.

Aho zabalik zeuden Fermin eta Harakin, loreak atontzen ari zen trabesti bati begira. Berria - Kultura

Kai berriaren proiektuaren eragina izango duen Bola bezalako hondartza txiki horretan biltzen diren hegaztiek **"aho zabalik**, txundituta uzten dituzte txangozaleak erakusten duten edertasunagatik". Berria - Euskal Herria

Gasteizko alkateak **aho zabalik** utzi ditu oposizioko alderdi guztiak, Musikaren eta Arte Eszenikoen Jauregia egiteko 77 milioi euro beharko dituztela jakinarazi dienean. Berria - Kultura

Izugarria izan zen! Lehen irteera egin genuen Sei Nazioetako talde baten kontra jokatzeko, eta **aho zabalik** utzi genituen denak. Berria - Kirola

Jakina da Xalak ezker gantxo aparta duela; hala ere, Beotibarrera hurbildu ziren zaletu ugari **aho-zabalik** utzi zituen. Berria - Kirola

Kanpotar asko **aho zabalik** geratzen gara AEBetako presidentearen iritzi politikoak entzunda. Berria - Mundua

Guk uste dugu Ukrainako herritarrek beraiek mundu osoa **aho zabalik** utzi dutela, beraiek ere beren etorkizuna erabakitzeko eskubidea dutela defendatuz. Berria - Mundua

Kanpotar asko **aho zabalik** geratzen gara AEBetako presidentearen iritzi politikoak entzunda. Berria - Mundua

Euskarari "aberri hizkuntza" diotson alderdiak mende bat pasatxoko adin nagusitasuna eduki eta normalizatzeko "lehen plana" oraingoa izateak **aho zabalik** utzi nau. Berria - Euskal Herria

Inbertsiogileak inoiz baino "O!" egile handiago, **aho zabalik**. Berria - Ekonomia

53 ***aho zabalka*** ahoa zabalik duela.

Bizikleta gainean jarri ezinda, zoru bustiaren erruz, **aho-zabalka**, mingaina kanpoan, arnas bila. Berria - Kirola

Neska batzuk ere beren eskaileran behera etorri ziren, bataz jantzirik eta **aho zabalka**. Iñaki Mendiguren

Eztarria oso handitua zuenez, ahoa beti irekia eramaten zuen, eta era itsusian **aho-zabalka** eta arnasestuka ibiltzen zen. Askoren artean

Aho-zabalka eta begiak igurzten atzeman dute umekia. Berria - Gaiak

-Hobe kapa hartzea -esan zuen Ronek ahopean, azkenean Lee Jordan, besoak luzatuz eta **aho zabalka**, irten zenean. Iñaki Mendiguren

Jaiotze eta heriotza data zehatzak emanez jarduten zuen, inguruko entzuleak konbentzitzeko... edo aspertzeko, hobeto esanda, bere bakarrizketaren fruituei erreparatzen badiegu, guztiok aharrausika eta **aho-zabalka**. Joan Mari Irigoien

54 ***aho-zikin***

Jainkoak sortutako gauza ororen artean neska txiki gaiztoena, zitalena, eta **aho-zikinena** izango naiz. Oskar Arana

Deseroso zirudien... baita bere buruarekin haserre ere, berak ere bere burua **aho-zikintzat** balu bezala. Joan Mari Irigoien

-Aho-zikin hori! -esan zuen Normandiar ederrak. Karlos Zabala

Badakit **aho zikin** fama duzula, baina oraintxe bertan desenkusatzen ez bazara bukatutzat emango dut gure kontratua eta etxera alde egingo dut. Bego Montorio

Baina bat-batean, burua jiraturik, oihu egin dit emakume herrenak: -Ez dezanala aharrausirik egin egun argitan, ez badun hire **aho zikin** horretan eguerdiko deabruek ostatu hartzerik nahi. Anjel Lertxundi

55 ***aho zulo*** ahoko zuloa.

Ez zuen sekula jende kaskezurrik begimendu: haragiz biluzi begi, sudur, **aho zuloei** begira zegoen fazinaturik. Itxaro Borda

Amerikarrek gerran botatzen zizkiguten bonba su-eragile haietako batek **aho-zuloan** leher egin izan balit bezala. Alberto Ladron Arana

Herio Leizeak neurrigabe zabalduko du **aho-zuloa** eta irekiko eztarria, handikiak eta herri xehea irensteko, beren irri eta barre guztiekin batera. Elizen arteko biblia

Aho zuloko hats nazkagarria. Paddy Rekalde

· *irud/hed* Zutik eusteko arazoak bazituen ere, iritsi zen azkenik, eta, komunaren **aho-zuloan** makurtu bezain laster bota zuen moxala. Aritz Gorrotxategi

Ez zenuen gazte-emakume-langabetu-ameslari zerrendan beste bat izan nahi, edo drogen merkatu errazean sartu nahi, nola utziko zenion zure buruari hiri handi honen **aho-zulo** sakonean erortzen. Berria - Kultura

Ondoren geratu den isilunea eternitatearen beraren **aho-zuloraino** daraman tunel sabairik gabea iruditu zait, zulo beltz bat arrasto berde eta urdinez estalia. Pako Aristi

56 ***aho zuri***

Izan ere, esperientziak erakutsi digu gure gauzak **aho zurientzako** bazka izan daitezkeela. Berria - Harian

57 ***ahoa bete hagin*** ahoa bete hortz.

Ahoa bete **hagin** gelditu ziren denak. Koldo Izagirre

Ahoa bete hagin geratu zen Ruche jauna; Tartaglia argitaratzekotan zen tratatu handiari buruz hitzik esan gabe bukatzen zen Quesiti. Jon Muñoz

58 ***ahoa bete haginekin*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Aho handi/aho larri batzuek hitz egiten dutenean, askok ahoa zabalik entzun dezakete, baina **ahoa bete haginekin** geratu ere. ETC-literatura, saiakera

59 ***ahoa bete haginekin gelditu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Musututs gelditu: pentsatzen zen batean huts egitea (**Ahoa bete haginekin gelditu**) Pot: Azkuek zion musua ez zela euskal ohitura. ETC-literatura, saiakera

60 ***ahoa bete hortz*** erabat harriturik.

Ahoa bete **hortz** gelditu nintzen, hura ikusita. Joxe Austin Arrieta

Emakumea ahoa bete **hortz** geratu zen, eta begietan nabarmendu zitzaion nahigabea. Patxi Zubizarreta

Asper-asper eginik, ahoa bete **hortz,** etxera joan zen. Migel Angel Mintegi

Euxebiok, entzutez nardaturik, ukaldi zakar bat jo zuen mahaian eta, altxaturik, purrustadaka alde egin zuen bileratik denak ahoa **bete** hortz lagata. Berria - Kultura

61 ***ahoa bete hortz gelditu***

Eskua begien parean eman zuen, zehazkiago ikusteko gisan, eta **ahoa bete hortz gelditu** zen bere burua ezagutu zuelarik, berrogei urte gazteago: ibilera furfuriatsu bera, gorputz segail bera, behako otzan bera. Elena Touyarou

Soinu hura adituta, Gülbahar **ahoa bete hortz gelditu** zen. Fernando Rey

Ahoa bete hortz gelditu nintzen, hura ikusita. Joxe Austin Arrieta

Ahoa bete hortz gelditu zitzaion Julian Gorosperi Haimar Zubeldiak etxerako bidea hartu zuenean, eta hortzak erori zitzaizkion Iban Mayok bide bera hartu nahi zuela konturatuta. Berria - Kirola

62 ***ahoa bete hortz utzi***

Ahoa bete hortz utzi dituzu, felagen krudelkeriak salatzen dituzten hitzak eztarrian trabaturik. Xabier Montoia

Balantsunen azken perpausak alaba **ahoa bete hortz utzi** zuen, erabat zintzilik, kanpainetako jende horiek eztei aberatsen obsesionea kaskoan iltzaturik zeramatelako erdi kexu. Itxaro Borda

Gorputz zoldarik gabekoen garbitasuna eta horrelako gauzak aipatzen zituen, eta gu denok, noski, **ahoa bete hortz uzten** gintuen. Alberto Barandiaren

Ustekabeko istripuak **ahoa bete hortz utzi** zuen kotxezaina. Jose Morales

Gizona zeinatu zen, **ahoa bete hortz uzten** zuela. Elena Touyarou

Ahoa bete hortz utzi ninduen, nolabait esan, gogoeta hark. Joxan Elosegi

Denboraldi-aurrean **ahoa bete hortz utzi** zuen bat baino gehiago M1 moto berriarekin erakutsitakoarekin, eta atzo Honda guztien aurretik geratu zen. Berria - Kirola

Barkamena amodio bizitzan ezinbesteko gakoa da, barkamena eta, jakina, egia... -amaitu du denok **ahoa bete hortz utzi** gaituen defentsa sutsuarekin. Patxi Zubizarreta

Ahoa bete hortz utzi ninduen, gorotz! Anjel Lertxundi

Ahots baten oihartzuna entzun zen, denak **ahoa bete hortz utzirik**. Jon Muñoz

63 ***ahoa bete hortzekin gelditu***

Eta azkenik Florententzat lanpostu bat aurkitu zuela iragarri zuen, eta barre egingo zutela, eta gobernua **ahoa bete hortzekin geldituko** zela! Karlos Zabala

64 ***ahoa bete hortzekin utzi***

Berdin esan genezake beste lokuzio askori buruz: **ahoa bete hortzekin utzi**, antzarak ferratzera bidali, azak eman, azpiak jan, begia bota, bihotz ukan, burua galdu, burua lehengo lepotik izan, norbaiten bizkar bizi, hitza jan, lepoa egin, piper egin, (bereak, nereak...) eta bi (esan, entzun [...]. Iñaki Arranz

Ikasle multzo bat gure etorkizun profesionalaz ari ginen ikastetxeko patioan, honako honek ingeniari, horrako horrek maisu eta harako hark mediku, noiz eta ere, gure Potzolok **ahoa bete hortzekin utzi** baikintuen denak. Aingeru Epaltza

65 ***ahoa betean***

siriarrak ekialdetik, filistearrak mendebaldetik. **Ahoa betean** irentsi dute Israel. Hala ere, Jaunaren haserrea ez da baretu; luzatua du oraindik eskua zigortzeko. Elizen arteko biblia

Ahoa betean esaten dizuet: Eros ezazue dirurik gabe,. Elizen arteko biblia

Barre eta negar **ahoa betean** egiten duten horietakoa. Jokin Muñoz

Nigan nabarituko banu kanpoko gauzetara dudala isuria, sorkari hutsalen zorigaitzean jartzen dudala atsegin eta kontsolamendua, sorkariez etengabe **ahoa betean** hitz egiten dudala, seinale ziurra da Jainkoa ez dela bizi eta ari nire baitan. Joan Mari Lekuona

66 ***ahoa beteka***

Amaren sabeletik artzainaren olako aixolberako bidean, euskaldunak zinezko kanibalak ginela errepikatzen nuen: zer genuen guhauren ninien horrela **ahoa beteka**

klikatzeko? Itxaro Borda

Alta Bushari da beti **ahoa beteka**, demokrazia duela ezarriko eta nausiaraziko han eta mundu guzian. Herria

67 *ahoa betez*

"O" horiek guztiak **ahoa betez**. Oskar Arana

68 *ahoa garbitu*

Aho-hortzetako osasunaren barnean honako hauek sartuko dira, gutxienez: **ahoa garbitzea**, ortodontziak, enpasteak, periodontzia, exodontzia eta protesiak. Berria - Euskal Herria

Beraz, **ahoa garbitzeko** eta uzteko behingoz harrapaketa haiek, mesedez. Pello Lizarralde

Gusek bere edontzi garagardoa irentsi eta eskua, **ahoa garbitzeko** erabili aurretik, bekokiraino jaso zuen. Lopez de Arana

Burua freskatu eta **ahoa garbitu** nuen konketan. Anjel Lertxundi

Herrenak birao egin du, eta **ahoa garbitzeko** tu lodi bat jaurti du harri biribilez eginiko zoruko lorearen kontra. Koldo Izagirre

Honela jokatzen du emakume adulteriogileak: jan, **ahoa garbitu** eta "Ez dut ezer txarrik egin" esaten du. Elizen arteko biblia

Erraldoiak te-zurrutada bat egin eta **ahoa garbitu** zuen eskuaren gainaz. Iñaki Mendiguren

Gero **ahoa garbitu** eta kafe kikara bat prestatu zuen. Koro Navarro

Ontzi batera oka egiten zuen, eta emazteak **ahoa garbitzen** zion. Juan Kruz Igerabide

-Goaziok kanpora! -dio Yolok **ahoa garbitzen** duen bitartean; Dylan eserita dago, lasai- Eta jaso hitzak galtzak, lumatutako oilaskoa ematen duk eta! Pako Aristi

Ahoa garbitu arren bertan segitzen du pixkatean. Hasier Etxeberria

69 *ahoa ireki*

Komediantea leiho batera inguratu da, **ahoa irekitzen** saiatu da, matrailezurra apurtuta baleuka bezala sentitzen da. Harkaitz Cano

Gertaera haren zergatiaz galdetu zion Hassanek bere buruari, baina, andre jakintsuaren bigarren aholkuaz oroiturik, ez zuen **ahoa ireki**. Jon Arretxe

Bizpahiru galdera mihi puntara etorri zitzaizkidan baina ez nezakeen **ahoa ireki**. Daniel Landart

Aita Arronategik **ahoa ireki** gabe baieztatzen zuen herririk gabeko alkateak narratzen zuen guztia. Lutxo Egia

Nola konpreni zezakeen funtsean, **ahoa irekitzean** berean gutxiesten baldin bagintuen? Itxaro Borda

Kanadan ere, hor errenkadan kantatzen dituzte, nik ez dut **ahoa ireki** ere egin behar. Berria - Kultura

Eta kanpaina hasi besterik ez da egin: Carod-Rovirak **ahoa irekitzen** duen bakoitzean, Rodriguez Zapaterok jasoko du egurra. Berria - Euskal Herria

Haiengana joan nintzen eta **ahoa ireki** baino lehenago galdezka neuzkan. Jon Muñoz

Amaiari **ahoa irekitzeko** astirik eman gabe, Pilar jarraian mintzatu zen berriro. Aitor Arana

Nik **ahoa ireki** orduko, kontra egin behar berak! Fernando Rey

Perrettek **ahoa ireki** eta lehengo galdera berriz egitera zihoakion uneantxe, bizkor iragarri zion Ruche jaunak. Jon Muñoz

Ahoa irekitzen du: irribarre inozotzat ere har daitekeen keinu oinazetsua egiten ari zait. Anjel Lertxundi

Ahoa ireki du, baina ez zaio berbarik etorri. Koldo Izagirre

Orduan, **ahoa irekitzen** zuen, eztarrian beti prest eta gertu zeukan oihua botatzeko, baina une horretantxe ikuskaria aienatzen zen. Jose Morales

Ahoa irekiagatik, aldiz, ez zitzaion hots ito bat baizik atera. Xabier Montoia

70 *ahoa irekita*

-Izugarri - erantzun zion Brigidak, begiak itxita, eta, zehatz zertarako ez zekiela, **ahoa irekita**. Felipe Juaristi

Zakurrak **ahoa irekita** hurbilduz adierazten du elkarren arteko harremanen hasiera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Orduan, maisua ere izutu egiten zen, izan ere, eskolako mutikoak ikasmahaien gainean hilda geratzen ziren euliek helduta eta beste batzuk **ahoa irekita** eta begiak itxita lurrean etzanda, ur eske. Pello Lizarralde

Ezta udako bero sapako egunetan garraiatzen zituztenean ere, urik gabe, Hungariatik, tren bat bete zerri, sudupil eta **ahoa irekita**, egarriak erabat irekita, egarriz hiltzen ari den txoriaren pare... Fernando Rey

Elurra ere baino zuriagoa zegoen "Elur" katutxoa itxura hartan, **ahoa irekita** eta haizea bera ebaki egiten zutela ziruditen altzairuzko begiak itxita. Pako Aristi

71 *ahoa/ezpainak itxi* isildu; isilarazi.

Ezin zuen ahoa **itxi,** hitzontzien bizioa zuen eta. Pello Lizarralde

Unaik beste biei ahoa **itxia** edukitzeko esan zien. Gotzon Garate

Quenuk kexu aurpegia ipini zuen, baina emazteak ahoa **itxi** zion, hitz hauek bortitz gehituta: [...]. Karlos Zabala

Beste herrialdeak salatzen ibili beharrean hobe lukete ahoa **itxi** eta ituna sinatu. Berria - Gaiak

-Itxi aho hori! -orro egin zion. Patxi Zubizarreta

-Ethel nirekin etorriko duk eta hik **itxi** ezak ahoa. Fernando Rey

Batzar nagusian iragarri dut zure salbazioa, ez ditut ezpainak **itxi**. arrebaren zureganako maitasunak eta halabeharrak ezpainak **itxi** ez balizkiote. Elizen arteko biblia

72 *ahoa zabal*

Batzuk, barra finkoari helduta, itzulipurdi baten erdian gelditu eta lurrera salto egin dute, **ahoa zabal**, kopeta izerditan, alkandoraren besoak bilduta eta hatzak bananduta erretxinaren eraginez. Itziar Otegi

Ahoa zabal dugula koilarari eusten dion eskuari begira-begira egon beharra, besterik ez. Iñigo Aranbarri

73 *ahoa zabal-zabal*

Poloniarra arras hunkiturik gelditu zen, **ahoa zabal-zabala**, Joanesi begietara so. Eneko Bidegain

Kafea hartu ezinik edukiko zaitu, bere mintza-jario ederrari adi, **ahoa zabal-zabal**. Joxerra Garzia

74 *ahoa zabal-zabal egin*

Ahoa zabal-zabal egin zuen, eta mundu honetakoa ez zen hots batek bete zuen gela: intziri luze hark ilea tente-tente jarri zion Harryri... Iñaki Mendiguren

Eta sinpatia komunikatu nahiko zuen barre eta poztasun kontagiatuaz Yes erantzun nizun **ahoa zabal-zabal eginda**. Xabier Mendiguren Elizegi

75 *ahoa zabal-zabalik*

Emakumeek pozarren eta ikusmin handiz begiratu zieten eskuei eta, haurrak bezain esaneko, zain geratu ziren, **ahoa zabal-zabalik**. Jose Morales

Harryk Hermioneri begiratu zion eta **ahoa zabal-zabalik** zuela ikusi zuen. Iñaki Mendiguren

Baina bazen, gainera, zelatan egoten zen piztia, **ahoa zabal-zabalik**, bakarrik ahoa balu bezala, gorputzik gabe. Pello Lizarralde

Ahoa zabal-zabalik geratzen zitzaion. Anjel Lertxundi

Zakurra punpez jin zen harengana, aitzineko hankak papoan eman zizkion eta aurpegia milikatu zion, arrantzalea harridurarengatik **ahoa zabal-zabalik** gelditzen zela. Elena Touyarou

Meharra **ahoa zabal-zabalik** zuela gelditu eta atzerantz jiratu zen besteei begiratzeko. Koldo Biguri

76 *ahoa zabaldu*

Hotz da **ahoa zabaltzeko**. Urtzi Urrutikoeetxea

Zakurra erasotzera datorkizunean, antxintxika egin beharrean, hobe gelditu, berari begira **ahoa zabaldu**,. Gotzon Garate

Agintea zeukanak **ahoa zabaldu** orduko, prest zituzten oinak abiatzeko eta eskuak jardunerako. Askoren artean

Lotan dagoenaren antzera egiten du irribarre; noizean behin inarrosten da, zaunka egiten du, **ahoa zabaltzen** du eta borrokan hasten da indar gutxirekin, ametsetan dagoen txakur baten gisa. Monika Etxebarria

Iheslaria iritsi aurreko arratsean, Jaunaren indarra jabetu zen nitaz; eta goizean, gizon hura iristean, **ahoa zabaldu** zitzaidan eta ez nuen mutu jarraitu. Elizen arteko biblia

Garitatik polizia argal batek, beraiei begira, **ahoa zabaldu** zuen. Pablo Sastre

-Sar zaitez - besoak luzatzen eta **ahoa zabaltzen** zuela. Iñaki Zabaleta

Hor behintzat nire hori, bere aita adinakoa, eta, ni hizketan ari naizenean, bere **ahoa zabaldu** duenik ezin esango du inork. Patxi Ezkiaga

Inork ez du **ahoa zabalduko** txapelketaren alde ilunekin kasu eman dezagun. Berria - Kultura

Ziurrenez, beldur izango zen Katek ez ote zuen **ahoa zabalduko** komisarian, eta horrexegatik desagertu zen, eta horrexegatik ezin izan nuen labankadaz josi. Sonia Gonzalez

Hauek lirateke beraz (gurutzedunak), **ahoa zabaltzen** duen unean, bertsolariak buruan "pasata" dauzkan zatiak, eta besteak (puntudunak), inprobisazio gorri-gorria liratekeenak. Andoni Egaña

Esaldiak amaitu ezinda, siku eten, eta arrainek urpean bezala arnasten zuen **ahoa zabalduta** eta aire baino, likidoa balitz bezala zurrupatzen zuen. Hasier Etxeberria

Itxuraz, berarengana zihoan jendearen bizi-tza, jendeak **ahoa zabaldu** baino lehenago bazekien. Gotzon Garate

77 ***ahoan bilorik gabe*** *adlag* argi eta garbi.

Goxoki baina **ahoan bilorik** gabe, gauza asko esplikatu zidan eta zinez estimatu nuen haren frankotasuna. Daniel Landart

Ahoan bilorik gabe erran dute nola iragan zen denbora lau hilabete luze horietan. Herria

Jean Grenet Baionako auzapezak bere ondoko hiriak gogor kritikatzen ditu, **ahoan bilorik** gabe. Berria - Euskal Herria

Mezatik landa, Ainxart notarioa joaiten zaio sankristiara eta **ahoan bilorik** gabe erasiatzen du, holako mintzaldia ahalge egingarria dela, ezin onartua. Michel Oronoz

Euskal sinesmen zaharreko "zaldikatze eroaren" arketipoa emazteek beren artean kontatzen zituzten ipuinetan zertan finkatzen zen zehazki, **ahoan bilorik** gabe azaltzen zuen. Itxaro Borda

Ahoan bilorik gabeko mintzaldia ukan dute. · **Ahoan bilorik** ez dut, neure edipoa erdizka baizik ez dudala gainditu aitortzeko. Herria

78 ***ahoan gurutze***

Hipokrates bera gogotik ahalegindu zen horretan, baina **ahoan gurutze** geratu zen. Jon Muñoz

79 ***ahoan legarrik gabe*** argi eta garbi

Kementsua zen, ahoan **legarrik** gabe hitz egiteko gai baino gaiago. Patxi Zubizarreta

Aga gizon zentzuduna zen eta ahoan **legarrik** gabe hitz egin zuen: [...]. Fernando Rey

Ahoan **legarrik** gabe mintzo da behera etorritako Buenos Aires moderno hartan. Iñigo Aranbarri

Aho-**legarrik** gabe kritikatu du Alemaniak duen politika, armak ematen baitizkio Ankarako gobernuari. Fernando Rey

Errusiarraren adimen berez zorrotz eta bizia da nagusi, eta errusiarrak ez du **legarrik** ahoan, ez ditu hitzak egosten [...] hitzetik hortzera asmatzen ditu. Jose Morales

80 ***ahoan listu egin***

Baina pentsatzen ahal duk ahoan **listu** nola egiten zitzaigun hura ikusita! Josu Zabaleta

81 ***ahoko zulo*** *adkor*

Otsoaren **ahoko zuloan** sartzen ari nintzela konturatu eta atzeraka egin nahi izan nuen, atea berriz zeharkatzeko, oraingoan etorritako bidetik alde egiteko, baina beranduegi zen. Jon Alonso

Gure asaben eskola baliagarri den edo ez, kostata ikasten da, dena **ahoko zulora** eman diezaguten ohituta hazi gaituztenean. Pello Zabala

Produktu naturalen industria garbi-ustekoari **ahoko zuloan** jarri zaio mamaxa. Iñaki Segurola

Basauritarrak bikain atera zuen falta, Llorentek buruarekin jo zuen eta **ahoko zuloan** zegoen Adurizek berdinketaren gola sartu zuen. Berria - Kirola

Kaleko jantzitako gizonezko bat lasterka bizian Erresumako hiriburuan, birikak **ahoko zulotik** botatzeko zorian, eraikin ezagun baterantz. Berria - Harian

Hamarrak eta erdia pasatxo omen zen, Cormenzana jaunari ezbeharrez **ahoko zulotik** suziri irazeki bat sartu zitzaionean. Iñaki Segurola

Egun hartatik irakaspen garrantzitsu bat atera nuen, behintzat: batzuei **ahoko zuloa** betetzen dien dena delako literatura hori, goiko solairuan oinez dabilen zakur baten pausoak besterik ez dira. Harkaitz Cano

82 ***ahora eman***

Baina gereziaren hezurra bota beharrean, goiz osoa ahoan erabil dezazula eskatzen dizut, eta berarekin josta zaitezela, eta gero, lanetik irteten zarenean, nirekin elkartzen zarenean, musu baten bidez **ahora eman** diezadazula". Patxi Zubizarreta

Amak Sarari **ahora ematen** zion jatekoa, baina Sarak uko egiten zion usu janariari. Joan Mari Irigoien

Ez nuen, baina, gogor saiatu beharrik izan, Itziar errukarria nire beharraz ohartu eta **ahora eman** baitzizkidan ogi-puska batzuk tarteka-marteka. Jon Arretxe

Errazena da merkatuak **ahora ematen** dizuna irenstea. Berria - Kultura

Garbitu, orraztu, eta janaria **ahora ematen** zion. Xabier Montoia

Inori kasurik egin gabe, masusta bat hartu eta **ahora eman** zion hiru asteko Denverri. Anton Garikano

Dolmancé, bizi-bizi: Itxaron, **ahora emaidazu** zaldunak ipurdian jarri dizuna. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aitzurraren kirtena irristatuz joan zitzaion eskutik hitz egiten nion bitartean, eta, azkenean, lurrera jausi zitzaion, eta **ahora eman** zituen eskuak, eta bularrera gero, eta ondoren ahora berriz. Ramon Saizarbitoria

Erantzuna aho-**ahora eman** zion: "Eta guri bai ala?". Iñigo Aranbarri

83 ***ahora etorri***

Orain ez dago **ahora etorritako** dena muturrera esaterik, euskal-lagun-hurkoa sobera minberatzeko edo lotsagarri uzteko herabez. Iñaki Segurola

Supituan, erabaki ezin argiagoa bururatu zitzaidan eta, bitan pentsatu gabe, gogotik **ahora etorritakoa** esan nion. Anjel Lertxundi

Orain ez ditut gauzak parez pare ikusten, edo buruz buru, eta denbora gehiago izaten dut gauzei buruzko iritziak taxutzeko, **ahora datorkidan** lehen hitza ez jaulkitzeko. Karlos Linazasoro

Hasi omen da hizketan, **ahora etortzen** zaizkionak botatzen, urduri, sentiberaturik, besoak astinduz etxeen gainetik zeru-ertzera begira. Pako Aristi

Ahora etortzen zitzaidan belarra behin eta berriro, hausnar egiten ez jakiteaz gainera belar idorra oso pisua delako, eta maiz gelditu behar izan nuen bidean, hesteetako minez. Joxan Elosegi

Irakasteko orduan lezio gehiegi bururа eta **ahora zetozkion** irakaslea. Pello Zabala

Ahora zetozkion izen bakarrak Avery, Charles Vane, Benjamin Hornigold eta Edward Teach-enak ziren. Juan Garzia

84 *ahotan* ik **ahotan**.

85 ***ahotan hartu***

Hizkuntza guztietan Deabruari hainbat eta hainbat deikera ematen zaizkio, alusiozkoak eta eufemistikoak, hala posible baita hura adieraztea izena **ahotan hartu** gabe. Juan Garzia

Errege merovingio zaharrek jainkoa **ahotan hartuz** zuritzen zuten beren indar ahalguztiduna. Patziku Perurena

Eta ama dut **ahotan hartzen** eta ez aita, zeren ume-kontu hauek amen gauzak izan ohi baitira haste-hastetik aitenak baino askozaz gehiago. Iñaki Segurola

Asko hitz egin eta idatzi da Sarrionandiaren lanaz, eta halako errespetua ere ematen du idazle sonatu baten eleberria **ahotan hartzeak**. Berria - Kultura

Legegintza Gorputza **ahotan hartu** eta izugarriak esan zituzten haren kontra. Karlos Zabala

86 ***ahotara ekarri***

Gauza unibertsalak azaldu nahi direnean horrela egin behar da, agian, gauza txikiak **ahotara ekarriz**. Lander Garro

Baina -itzuli nion kolpea, Maximilian plazan ez ezik auzo osoan barrena zebilen zurrumurru ezaguna **ahotara ekarriz**-, zure aita ere halako kontuetan dabilela entzun dut. Alberto Ladron Arana

87 ***ahotik ahora***

Argi zegoan kontu hori **ahotik ahora** zebilela departamenduan. Jokin Muñoz

Zurrut egin zion bertako ardoari, luze, eta azkenean Neskari txorrotada bat pasatu zion **ahotik ahora** trebezia handiz. Jon Arretxe

Zure aitak lehengoan esan zidanez, gainera, hormak-eta intsonorizatuak daude, eta telebista ere baxu egoten da, futbol-partidak entzuteko ez bada, edo faunari buruzko dokumentalen bat noizean behin... zure aitak **ahotik ahora** doan hitza maite baitu eta bezeroak nahi baititu protagonista. Joan Mari Irigoien

Ahotik ahora zuen izena Hitzetik hortzeraren aitzindari izan zen bertso-programak. Andoni Egaña

Ez, ordea, Moises nire zerbitzariari, / zerbitzari guztietan etxekoena baitut hura; / **ahotik ahora** hitz egiten diot hari, / ez ilun-gordeka, / aurrez aurre baizik, / eta Jaunaren irudia ikusten duelarik". Jose Antonio Mujika

ahotik ahora hitz egiten diot, aurrez aurre eta ez hitz-erdika. Hark nire irudia ikusten du, Jaun honena. "Nola ausartzen zarete, beraz, Moisesez gaizki-esaka jardutera?". Elizen arteko biblia

Azken asteotan, legebiltzarkide taldeen artean proposamen hori banatu dute jeltzaleek, eta, hortaz, era guztietako susmoak **ahotik ahora** ibili dira Eusko Legebiltzarrean. Berria - Euskal Herria

Eskertzekoa zen inguru-mingururik gabe solastu ahal izatea, **ahotik ahora**. Aingeru Epaltza

Volanges ttipia, batez ere, zure minez da, eta aharrausika egoten da, egun argiak diraueino, **ahotik ahora**. Jon Muñoz

Ahotik ahora erantzun nik, nire zapo-hizkeran. Aingeru Epaltza

Isiltasuna zabaltzen da **ahotik ahora**, eta baten batek, meeka eta beeka, balada baldres bati ekiten dio. Bernardo Atxaga

88 *ahotik ahoraino*

Hurbildu zitzaion, astiro, harik eta **ahotik ahoraino** arra eskasa utzi arte. Sonia Gonzalez

89 *ahotik ahorako*

Huraxe zen, bada, **ahotik ahorakoa** egitea. Jesus Mari Mendizabal

Iñora joan danean, bertsoa berekin eraman du bere alderdi guztiekin: bertsolaria, entzulea, **ahotik ahorako** bertsoak, paperean idatziak, baita jaioterrian ikasitako doinuak ere. Berria - Kultura

Ahozko berbaldiaren gainean eraikitako fikzioa da, eta **ahotik ahorako** horri itzultzaileak ederto eutsi dio. Berria - Kultura

90 *ahotik atera*

Bereak diren arren, bere **ahotik ateratakoak**, harritu egiten da hitzokin. Oskar Arana

Odola bizkorrago isur zekion, ur berotan sartu bide du hanka, eta zainak ebaki orkatila inguruan; eta odolusten hasi da, eta odolusten jarraitu du azken gogoetak **ahotik atera** ahala. Imanol Zurutuza

Baietz ihardetsi zidan gomita hori ene **ahotik atera** orduko. Janbattitt Dirassar

Gauza asko entzuten genituen goiko solairutik, artista pintore baten **ahotik atera** zitezkeela pentsatu ere egingo ez genituzkeenak. Pello Lizarralde

Norbaiten **ahotik ateratako** kontuak askotan entzuten direnean, azkenerako ez da jakiten epika non bukatzen den eta non hasten den lirika. Xabier Etxabe

Asteazkenean, izeba Milagrosen hileta-elizkizunen ondoko kafetegian, nire andrearen **ahotik ateratako** "Fernando, bagoaz?" horrek oihartzun durunditsua utzia zidan belarri barnean. Aingeru Epaltza

Horrelako deskribapenak ez dira ohikoak saskibaloian, eta are gutxiago kontrario baten **ahotik ateratzen** badira. Berria - Kirola

Esaldia azken asteotan Nafarroako gobernuko presidentearen **ahotik atera** dela dirudien arren, urteak dira esan zutenetik. Berria - Ekonomia

Baina hurbildu eta argazki bat atera nahi izan dugunean bihotzen urradura **ahotik atera** zaie, bortitz, oso bortitz: "fuck you!», oihukatu digute. Berria - Kultura

Ahotik ateratzen dena, berriz, bihotz barrutik dator, eta horrek bai egiten duela gizakia zikin! Elizen arteko biblia

-Bai. Eta zuek ez al duzue inoiz Liburu Santuko pasarte hau irakurri: Umetxoen eta bularreko haurtxoen **ahotik atera** duzu gorespena? Elizen arteko biblia

Eta ondoren gertatu zen elkarrizketa ere hitzak **ahotik ateratzerako** nire buruan idatzita agertu zitzaidan deblauki. Pako Aristi

Ozta-ozta entzun daiteke esa-ten duzuna eta, gutxi hitz egiten duzunez, ez dut galdu nahi zure **ahotik ateratzen** den hitz bakar bat ere... Xabier Paya

Ez **ahotik atera** zure sekretua, ene maitea, eta batez ere bakarrik jokatu: ez dago konplizeak baino gauza arriskutsuagorik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jarraitu egin dizute! - izan ziren irakaslearen **ahotik atera** ziren hurrengo hitzak. Alberto Ladron Arana

91 *ahotik belarrira*

Airoso bukatzen da, ordea, eta giro pisu bat gelditzen da, biziegi baitaude, oraindik ere, **ahotik belarrira** joan diren irain erabatekoak. Xabier Olarra

Errentako belarria negozio ona izan da beti, Elizak asmakizun bikainak egin izan ditu, hori egia, eta aitortza **ahotik belarrira** egitea horietako bat da. Karlos Zabala

Plaga izu-laborria eragiten zuen eria zen eta, berbak karelez karel jauzi egin zuen, Plaga!, txopatik brankara joan eta brankatik txopara itzuli zen, Plaga!, **ahotik belarrira** eta belarritik ahora, Plaga!, ontzia ikaraz bete zen, Plaga!, eta han, ordura arte altzo goxo izana genuen Tajo ibaiko uretan, dardara moduko bat bazebilela irudi izan zuen. Edorta Jimenez

-Eskuzabalak lapurrak bezala! -esan zion Alcide Jolivetek bere lagunari **ahotik belarrira**. Karlos Zabala

Alde bat kanpokoa (**ahotik belarrira** doazen hotsen dardara), eta beste bat barrukoa, gainerakoa barne duena. Isabel Arrigain

Mila gau eta bat gehiago jatorri hindu, pertsiar eta arabiarreko pertsonek asmatu zuten, eta mendez mende sortu eta osatu zen, **ahotik belarrira**, ipuin kontalarien bidez, haiek inondik ere sumatu ezin izango zuten bezala, mendez mende irauteko. Patxi Zubizarreta

Beren erkidegoari arrotz zitzaion inoren eskuetan eror ez zi tezen beren sekretuak, ahalik gutxiena idatzi, eta **ahotik belarrira** irakasten zitean beren jakintza pitagorikoek. Jon Muñoz

92 *ahotik ezin utzi*

Denek erraiten zuten **ahotik ezin utzia** zela... Menane Oxandabaratz

Janari hori, **ahotik ezin utzia**, igande guziz emaiten zuten, bereziki Pedro Mari ostatuan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ahotik ezin utzia. Daniel Landart

Erramukari urte guziz egiten den bezala, Ezkia ikastolako burrasoek **ahotik ezin utzizko** bixkotxa on batzu salduko dituzte eliza ateetan, meza aintzin eta ondotik. Herria

Ez ahantz ere, **ahotik ezin utzizko** taloekin aratsaldea bururatzen ahalko dela! Herria

93 *ahotik ezin utzizko*

Zintzur bustitze bat lehenik eta segida Gezainburu senhar emaztek preparatua ziguten **ahotik ezin utzizko** zikiroa. Herria

Plazaren erdian mahainak ezarririk, gau goxoa izan da **ahotik ezin utzizko** zikiroaren gozatzeko. Herria

Oro bururaturik hurrupaldi bat eskainia izan da lekuan berean, ondotik kasik ehun lagun bazkaldu dira Izpurako "Arradoi" ostatuan **ahotik ezin utzizko** lekuko axuria gozatuz besteak beste. Herria

Ez ahantz ere, **ahotik ezin utzizko** taloekin aratsaldea bururatzen ahalko dela! Herria

94 *ahotik hortzera*

Ahotik hortzera isuri nuen. Aingeru Epaltza

Eta **ahotik hortzera**. Jon Muñoz

95 *ahotik kendu*

Politikagatik diot, ez dutelako aberria **ahotik kentzen**. Lander Garro

- Barka ezazu, Luziana, **ahotik kendu** didazu. Koldo Izagirre

96 *ahotik sudurrera*

Garai batean Polonian edan ohi zuen ezti-uraren berdina zen edari hura: xanpainarenak bezalako burbuilak zituen, eta gasak oso kilika atseginak eragiten zituen **ahotik sudurrera** igotzean. Jose Morales

"Ez noski eguzkia marratan hartzera!" erantzun zidan **ahotik sudurrera**. Koldo Izagirre

97 *ahotiko antisorgailu* *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Ahotiko antisorgailua edo pilula antikontzeptiboa hormonaz osatutako sintesiko pilula da, ahoz hartzekoa, obulaziorako ezinbestekoak diren baldintza bat edo gehiago blokeatzen dituena emakumearengan. ETC-entziklopedia

Ahotiko antisorgailuak hartzeak ere migraina bat martxan jar dezake. ETC-prentsa

Badira bagina ingurua aldatzen duten botikak (antibiotikoak, **ahotiko antisorgailuak** ...); horien erabilerak gora egitean onddoen ugalketa errazten da. ETC-prentsa

Antibiotikoak, **ahotiko antisorgailuak**, antihistaminikoak, lasaigarriak, analgesikoak eta depresioaren kontrako botikak denbora luzean hartuz gero, zure ahoko listuaren kantitatea eta kalitatea gutxitu egingo da, eta ahoa babesik gabe geratuko da. ETC-prentsa

AEBetan eta Europan egindako ikerketa ugarik erakutsi bezala, partxe horien efektu sekundarioak pilula edo **ahotiko antisorgailuen** oso antzekoak izan dira. ETC-prentsa

Albo ondorioak, ordea, hain izan ziren nabarmenak, ezen **ahotiko antisorgailuen** kaxetako argibide orrian zehaztu behar izan baitzituzten azkenean. ETC-prentsa

98 *ahoz aho* *adlag*

Ahoz aho dabilen albiste edo berri ziurtagabea. Bernardo Atxaga

Gazte suhar horren izena **ahoz aho** zebilen noizbait euskal erreformatuen buru izateko. Aingeru Epaltza

Ezizena neurri-neurrikoa izanez gero, **ahoz aho** hedatzen bada ere, hitz idatzia bezain ezabaezina da: aizkorakadaka ere ezin ezpaldu. Jose Morales

Ahoz aho pasatzen ziren informaziook, plazaren batean biltzean edo, batetik bestera zebiltzala, bidean topo eginda. Iñaki Iñurrieta

Hiru Trukuk ematen dituen kantak belaunaldiz belaunaldi **ahoz aho** transmititu dira, Geroago -hala argitu, itzuli eta zabaldu dute **ahoz aho** - jasoko genituen bakoitzaren gauza guztiak, noski; aurretik, baina, desinfektatu egin behar ziren, eta gu, dutxatu. Berria - Harian

Pasadizoa eta xehetasunak **ahoz aho** zabaldu ziren, eta auzokideengan harridura eta egonezina eragin zuten. Patxi Zubizarreta

Lehiaketa ez zen ofiziala, noski: ez genuen ezer jakin nahi ikastetxearekin; hortaz, **ahoz aho** egin genuen propaganda, eta ikasleen komunetan ere bai, hango paretetan txartelak itsatsita. Xabier Mendiguren Elizegi

Kontakizunak **ahoz aho** eta idatziz hedatu ziren, aldaera askorekin. Juan Kruz Igerabide

Gero, **ahoz aho** eta mendez mende gorde izan duk tradizioa, lehengo mendean norbaitek bertso-paperean jarri zuen arte. Joan Mari Irigoien

Ahoz aho entzun ditudan albisteen arabera, artzainen artean ere izan dira horrelako gertakariak. Koldo Zuazo

Hiriko ateetan, hilobien artean, larruz aldatzen ziren gizonen historiak kontatu zizkion, beltzek, siriarrek, tabernariek eta suplizio-gurutzeak zaintzen zituztèn soldaduek **ahoz aho** elkarri errepikatuak. Juan Garzia

Hedabideetako kritika, eta irakurleek **ahoz aho** egiten duten komentarioa. Ana Urkiza

Ez dakit zergatik transmititu behar diren gauza hauek **ahoz aho**. Xabier Aranburu

Informatzaileek nahasi egiten dituzte garaiak, zeharbidez jakindakoa zuzenekotzat hartzen dute, eta anekdotak, **ahoz aho**, edertu egiten dira. Koldo Izagirre

Horrela doa gure hizkuntza **ahoz aho** mendez mende. Herria

Ahoz aho ekarri da zure maitasunezko mehatxua egundaino prentsako zentsura guztien gainetik. Koldo Izagirre

99 *ahoz ahoko arnasketa* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Kike suspertzen saiatu nintzen ni, bihotz-biriketako bizkortzea egiten, eta **ahoz ahoko arnasketa** egiten, baina alferrik. ETC-literatura, saiakera

Funtsean, bihotzeko masajea eta **ahoz ahoko arnasketa** egitean datza bizkortzea: gaixoaren toraxaren erdialdean esku bat bestearen gainean jarriz, presioa egin behar da; lauzpabost zentrimetro sakatuz, minutuko ehun konpresio inguru egin behar dira. ETC-prentsa

Sorosleak saiatu ziren bere onera ekartzen **ahoz ahoko arnasketa** eginda, baina ezin izan zuten ezer egin. ETC-prentsa

Bitartean, berpizte lanak egitea (bihotz masajea eta **ahoz ahoko arnasketa**); eta, eskura izanez gero, desfibriladore erdi-automatikoa aplikatzea. ETC-prentsa

Azkenik, bosgarren faktorea ondoko itemek definitzen zuten: besteekin mahai-tresnak partekatzen dituena, **ahoz-ahoko arnasketa** egiten duena, besteen hortzetako eskuila erabiltzen duena eta komun publikoak erabiltzen dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

100 *ahoz behera*

Ahoz behera etzan zen, eta berriro burkoaren ondoan zuen paperezko paketea ireki zuen. Ibon Uribarri

Putzu batean **ahoz behera** erortzen niz eta zakur batek bezala nasaiki hurrupatzen dut. Michel Oronoz

Harry **ahoz behera** zegoen harlauza hotzaren gainean. Iñaki Mendiguren

Gnomoak zabuka egin zuen eta hantxe bertan zerraldo erori zen **ahoz behera**, gela osoari dar-dar eragin zion danbatekoaz. Iñaki Mendiguren

Rory Morek makurtu eta gorpua bultzatu zuen **ahoz gora** jartzeko. Joanes Urkixo

Arraia, ertz gorri argiko sabel hitsa agerian, ahoz gora dagoela, bizkar zabal aparta harro erakusten duena, **ahoz behera** ipintzen dutenean, bizkar egundokoa. Karlos Zabala

101 *ahoz beherako etzanera* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Haurra **ahoz beherako etzaneran** lotaratzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Blackburn eta lagunek beste posizio bat aurkitu zuten, non arantzagaineko tendoiak isolaturik lan egiten duen: **ahoz beherako etzaneran**, sorbalda 90-100?-ko abdukzioan eta kanpo-errotazio maximoan -erpurua gora begira- eta ukondoa luzatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

102 *ahoz belarri*

Zelten zaizkirik jakitunena eta denen buru egiten zuena, druida alegia, ezin baitzen izkribuz balia; usario eta sineste guziak **ahoz belarri** irakatsi beharra zeukan. Patziku Perurena

Albisteak **ahoz belarri** zabaltzen dira espetxe batean, baina harrigarri arin. Koldo Izagirre

103 *ahoz gora*

Ahoz gora gelditzen naiz, begiak zabal, ez loan ez atzarrian. Anjel Lertxundi

Ni **ahoz gora**, sabaira begira, esku bietako hatzak garondo azpian gurutzatuta. Inazio Mujika Iraola

Gurdizaina **ahoz gora** lo egoten da zama gainean, zilbotea agerian duela. Koldo Biguri

Ez dakit Goierriko zein herritan "aizkora bat **ahoz gora** badago, guretik badoa dirua", esaten dela aipatu zuen. Patxi Iturritegi

Ahoz gora, lurrean etzanda gelditu zara goiko leihatilari begira. Rafa Egiguren

Halaxe egon ginen biok, uretan **ahoz gora** etzanda, ahoa itxita, ezer ez irenstearren. Joxe Austin Arrieta

Lurrean **ahoz gora** etzanda, Frodok mugitzeke zirauen. Agustin Otsoa

Supermerkatuko aldizkari apalategia oroitzen zuen, aldizkarien apaletako argazkietan inoiz baino inozoago irribarrez ageri zen aurpegi pila hura, **ahoz gora** zetzan gorpuaz barrez ariko balira bezala. Harkaitz Cano

Ohean **ahoz gora** etzan, luze-luze bere alboan, eta jantzia gerriraino igo du. Sonia Gonzalez

Ahoz gora etzanarazi nau, gorputz erdia, gerriz gorakoa, mahaitik kanpo zintzilik. Agurtzane Juanena

· Heldu da halaber hiru milagarren liskarra, eta Real Academia de la Historia delakoak **ahoz gora** salatzen du ikastoletan irakasten omen dena: [...]. Bernardo Atxaga

104 *ahoz gora etzanda*

Ahoz gora etzanda zegoen neskatoaren sudurrak eta ezpainek gaztetasunaren distira zuten sabaitik zetorren argitan. Ibon Uribarri

Sir Johnen egongelan sartzean, gorpua ikusi nuen lehen begiratuan, **ahoz gora etzanda**, gela erdi-erdian. Josu Zabaleta

Ahoz gora etzanda, Emile hodeiei begira zegoen. Lopez de Arana

Bihotza behatzeko monitore batekin loturik zegoen nire gorputza, eta zain barneko orratz bat besoan sartuta neukala eta plastikozko oxigeno-hodiak sudurzuloetan, **ahoz gora etzanda** egon beste aukerarik ez nuen. Oskar Arana

Lurrean **ahoz gora etzanda**, Frodok mugitzeke zirauen. Agustin Otsoa

Ohean **ahoz gora etzanda** pare bat minutu zeramala, hatzak klaskatu eta, irribarre zabala aurpegian, ia laurehun arimaren jabe zela gogoratu zen. Jose Morales

Gizontxoa hurbildu zitzaionean ez zion jaramonik egin, mugitu gabe jarraitu zuen, **ahoz gora etzanda**. Joseba Urteaga

Zain nago orain, **ahoz gora etzanda**, belaun eta eskuekin oholari eusten. Harkaitz Cano

Gehienak **ahoz gora etzanda** daude, besoak makurtuta, eta osorik. Berria - Harian

Ahoz gora etzanda nago eta erizain andreak txaplatak jartzen dizkit. Itziar Otegi

Hondartza txiki hartara ailegatu nintzenerako, Maite bertan zegoen nire zain hareatzan luze eta **ahoz gora etzanda**. Joseba Sarrionandia

ahoz gora etzanda baitzeuden biak, hamar-hamabost metroko bitartean -, etengabe zaunkaka eta korrika, zeinen ondoan geratu ez zekiela. Ramon Saizarbitoria

Marcel ere bai, eta halaxe egon ginen biok, uretan **ahoz gora etzanda**, ahoa itxita, ezer ez irenstearren: ur uher beroa zen, kirastuna, higidura bakoitzean burbuilak sortzen zituena, baina ura nolanahi ere. Joxe Austin Arrieta

105 *ahoz gorako etzanera* *(corpusean ez dago; ETCn **82** agerraldi)*

Egoteko formak: **ahoz gorako etzanera**, ahuspezko etzanera... eta nik asmatutakoa, eskuzko etzanera. ETC-prentsa

Pazientea **ahoz gorako etzaneran** dagoela hauteman ezin bada, alboranzko etzaneran ezkerrerantz jarriko dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ahoz gorako etzaneran, burua esku-ohetik kanpo. ETC-zientzia, zuzenbidea

106 *ahozko* ik **ahozko**.

107 *aizkora-aho*

Edo **aizkora-ahoa** aizkorarenari, musu ematerakoan duen gozotasunagatik. Iñigo Aranbarri

Euli-saldo baten burrunba ateratzen zuen aire beroak, eta airean jasotako **aizkora-ahoaren** moduko distirak egiten zituen argiak. Anjel Lertxundi

108 *bi ahoko ezpata* aldeko edo kontrako gerta daitekeen gauza.

Baina hori **bi ahoko ezpata** da. Berria - Ekonomia

Neskatxak ez zion hausnartzeari utzi, eta hausnarketa, izan, **bi ahoko ezpata** da. Patxi Zubizarreta

Dirulaguntza politika **bi ahoko ezpata** dela aitortu zuten atzo Merkataritza Ganberako arduradunek. Berria - Ekonomia

Bi ahoko ezpatak balira bezala, Wildek hitzen berezko esanahiarekin eta beste hitzekiko hurbiltasunak ematen dienarekin jokatzen du. Antton Olano

109 *giza aho* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Baina Adlerek ez zidan soa itzuli, dantzan ari zen gelan barrena, kexu hitzak esaten, erreguak, ahapaldi goibelak, inoiz **giza ahotik** entzun ez nituen modukoak. ETC-literatura, saiakera

Giza ahoan gertatzen diren zenbaketa eta artikulazioan oinarritzen den sistema dugu. Gaur egun, bere erabilera oso murritza da sistema komertzialei dagokien alorrean. ETC-entziklopedia

"Streptococcus mitis", lehen "Streptococcus mitior" deitua, "Streptococcus" genero barruan sailkatzen den bakterio mesofiloa da, **giza ahoan** bizi dena. ETC-entziklopedia

110 *hitza ahoan utzi*

Zer ote zuen Martin Mihurubikoak halako ugazaba bat **hitza ahoan uzteko**. Edorta Jimenez

111 *hitza ahotik kendu* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Iruditu zitzaion bere aldetik atseginago izango zela txoferraren aldamenean esertzeko bere burua eskaintzea, eta ez atzean, eta hori proposatzera zihoan unean **hitza ahotik kendu** zion txoferrak. ETC-literatura, saiakera

Gero, Jonek eta umearen amak, elkarri **hitza ahotik kenduz**, beste gauza batzuk ere eraman ditzala eskatu diote. ETC-literatura, saiakera

112 *hortzak ahoan egon*

Ihes egiten zuenaren tirokatzeko **hortzak ahoan zegoen**. Eneko Bidegain

113 *ibai aho* ik **bokale**.

Bere lan eskergaren zigilu ere izan zitekeela otu zitzaion **ibai**-aho haiek emakume aho bihurtzea, artelana beraz. Felipe Juaristi

Ibai-ahoko adar batean utzi gintuzten. Joan Mari Irigoien

Beste nehork ez bezala ezagutzen baitzuen honek San Laurendiko **ibai** ahoa. Aurelia Arkotxa

114 *ipurditik ahoraino* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Azkenean, nola edo hala, Idiak ulertaraziko zion bere emazteari nire lobaren partehartzea lapurretan, eta etxe hartara itzultzen banintzen, batek daki nirekin zer egingo zuten, beharbada laztabina **ipurditik ahoraino** sartu. ETC-literatura, saiakera

115 *meatze-aho* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Une batez gure bidetik irten eta ehun metro ibiliz gero, panelak dioena geure begiz ikusteko aukera izango dugu gainera: gaztaina-hobi ederra eta **meatze-ahoa**, hauek benetakoak. ETC-prentsa

Malda gogorra ikus daiteke: gailurrerako haitzen artean ezkutatutako **meatze ahoak** agerian dituela. ETC-prentsa

Meatze-ahoa itsutu zuten, sastrakak, etxe abandonatuetako habeak, su eman zieten gero. ETC-literatura, saiakera

116 *sute-aho* *(corpusean ez dago; ETCn **86** agerraldi)*

Hidrante edo **sute-ahoa** ur hargune mota bat da, hoditeria nagusitik ur emari handia emateko diseinatua, batez ere suak itzaltzeko lanetarako. ETC-entziklopedia

Kaleek abandonu kutsu bat zuten, **sute-ahoei** ur herdoildu hari bat zerien. ETC-literatura, saiakera

Ez zaigu egokia iruditzen, baztertu egiten baitu segurtasun pasiboaren kontzeptua eta ez baitu kontuan hartzen atarteak egokiak direla gune bertikaletan ezbeharrari aurre egiten laguntzen duten instalazioak kokatzeko (**sute-ahoak**, zutabe lehorrak, ihinztagailuak eta abar). ETC-zientzia, zuzenbidea

Aho edo mutur bat edo gehiago dituen **sute-aho** bertikala, hoditeria nagusitik ura ateratzeko erabiltzen dena; batez ere, suak itzaltzeko lanetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hondarretan moldekatuz sortutako piezak dira, besteak beste, automobiletako zilindro-blokeak, **sute-ahoak** eta hodi handien ahokadurak. ETC-zientzia, zuzenbidea

117 *ureztatze aho* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Udaletxeko leihoetatik ikusi genituen kaleko jantzitako pertsonak **ureztatze ahoak** hausten, entzierroetako zurezko taulak hausten eta horiei su ematen... ETC-prentsa

Ureztatze-ahoa (30 mm) 1,50 L/s. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aho aurrean (15); **aho barnean** (10); **aho barruan** (18); **aho bat** (18); **aho bateko** (21); **aho batekoa** (13); **aho baten** (6); **aho batetik** (6); **aho batez** (526); **aho batez egin** (10); **aho batez erabaki** (23); **aho batez gaitzetsi** (9); **aho batez hartu** (27); **aho batez onartu** (100); **aho batez onartua** (13); **aho batez onartutako** (16); **aho batez onartzen** (8); **aho beltza** (6); **aho bete** (71); **aho bete hortz** (45); **aho bete kanta** (10); **aho betean** (19); **aho beteka** (34); **aho betez** (5); **aho biko** (15); **aho biko ezpata** (8); **aho bizarrik** (8); **aho bizarrik gabe** (8); **aho dabil** (6); **aho dabilen** (5); **aho erdi** (5); **aho eta** (15); **aho gainean** (15); **aho gingila** (9); **aho gozoa** (5); **aho handi** (9); **aho handia** (8); **aho hau** (5); **aho hori** (8); **aho hura** (7); **aho itxiaren** (5); **aho mihietan** (6); **aho mihitan** (26); **aho mihiz** (6); **aho ondoan** (5); **aho parean** (13); **aho sabaia** (13); **aho sabaian** (21); **aho soinua** (5); **aho txikiarekin** (11); **aho zabal** (13); **aho zabaldu** (7); **aho zabalik** (219); **aho zabalik gelditu** (11); **aho zabalik geratu** (33); **aho zabalik geratzen** (9); **aho zabalik utzi** (20); **aho zabalka** (21); **aho zapore** (7); **ahoz aho** (105); **atzo aho** (5); **baina aho** (11); **bat aho** (9); **baten aho** (5); **batzarrak aho** (5); **bere aho** (26); **beste aho** (5); **bi aho** (5); **da aho** (13); **den aho** (5); **denak aho** (8); **denek aho** (15); **denek aho batez** (14); **denen aho** (10); **denen aho mihitan** (9); **du aho** (17); **dute aho** (9); **erabakia aho** (8); **ere aho** (10); **eskua aho** (6); **eta aho** (146); **eta aho batez** (34); **eta aho zabalik** (20); **guztiak aho** (7); **guztiek aho** (20); **guztiek aho batez** (19); **haren aho** (18); **ia aho** (27); **ia aho batez** (27); **jendeak aho** (5); **kontseiluak aho batez** (18); **mihia aho** (8); **ni aho** (6); **nire aho** (13); **parlamentuak aho** (7); **patronatuak aho** (5); **udalak aho** (7); **zure aho** (6)

ahoa bete (79); **ahoa bete hortz** (47); **ahoa betean** (5); **ahoa beterik** (10); **ahoa beteta** (9); **ahoa betetzen** (13); **ahoa erdi** (11); **ahoa ere** (17); **ahoa estali** (17); **ahoa estaltzen** (5); **ahoa eta** (52); **ahoa ez** (8); **ahoa garbitu** (5); **ahoa ireki** (79); **ahoa ireki eta** (17); **ahoa ireki gabe** (10); **ahoa ireki zuen** (8); **ahoa irekita** (7); **ahoa irekitzen** (23); **ahoa itxi** (30); **ahoa itxita** (14); **ahoa ixten** (6); **ahoa lehor** (12); **ahoa lehortu** (6); **ahoa nire** (10); **ahoa okertu** (7); **ahoa tapatu** (5); **ahoa zabal** (30); **ahoa zabal zabalik** (17); **ahoa zabaldu** (104); **ahoa zabaldu eta** (10); **ahoa zabaldu orduko** (8); **ahoa zabaldu zuen** (36); **ahoa zabalduko** (8); **ahoa zabalik** (55); **ahoa zabaltzen** (19); **baina ahoa** (9); **baten ahoa** (8); **batez ahoa** (5); **belarraren ahoa** (23); **bere ahoa** (14); **da ahoa** (8); **du ahoa** (16); **ere ahoa** (9); **eskuaz ahoa** (6); **eta ahoa** (134); **eta ahoa bete** (8); **eta ahoa zabaldu** (8); **eta ahoa zabalik** (8); **ez zuen ahoa** (11); **haren ahoa** (11); **harryk ahoa** (5); **labanaren ahoa** (5); **nire ahoa** (16); **nuen ahoa** (16); **sudurra eta ahoa** (8); **zen ahoa** (10); **zitzaion ahoa** (5); **zuen ahoa** (52); **zure ahoa** (8); **zuten ahoa** (5)

ahoak eman (11); **ahoak eman ahala** (11); **ahoak ez** (7); **ahoak itxi** (6); **eta ahoak** (12); **haren ahoak** (6); **nire ahoak** (13)

ahoan bilorik (67); **ahoan bilorik gabe** (65); **ahoan eta** (34); **ahoan ez** (7); **ahoan hartu** (10); **ahoan jarri** (22); **ahoan jarri zuen** (8); **ahoan musu** (19); **ahoan sartu** (54); **ahoan sartu eta** (9); **ahoan sartu zuen** (9); **ahoan sartuta** (7); **ahoan sartzea** (9); **ahoan sartzeko** (8); **ahoan sartzen** (14); **ahoan zeukan** (5); **ahoan zuela** (8); **baina ahoan** (7); **bat ahoan** (26); **baten ahoan** (11); **bere ahoan** (15); **du ahoan** (11); **edo ahoan** (5); **eta ahoan** (65); **eta ahoan sartu** (15); **gero ahoan** (5); **guztien ahoan** (5); **haien ahoan** (5); **haren ahoan** (15); **hitza ahoan** (5); **hitzak ahoan** (7); **irribarrea ahoan** (10); **nion ahoan** (5); **nire ahoan** (24); **nuen ahoan** (11); **pipa ahoan** (6); **purua ahoan** (5); **zakila ahoan** (6); **zeukan ahoan** (5); **zidan ahoan** (9); **zigarroa ahoan** (7); **zion ahoan** (11); **zuen ahoan** (14)

ahoaren gainean (5); **ahoaren kontra** (5); **ahoaren parean** (7); **ahoko minbizia** (7); **ahoko zuloan** (6); **ahoz ahoko** (11); **bere ahoaz** (5); **bi ahoko** (10); **eta ahoaren** (9); **eta ahoko** (14); **haren ahoari** (6); **haren ahoko** (6); **nire ahoaren** (5)

ahora eman (7); **ahora eraman** (62); **ahora eraman eta** (10); **ahora eraman zuen** (19); **ahora eramateko** (12); **ahora eta** (6); **ahora hurbildu** (8); **ahora mismo** (5); **ahora sartu** (7); **ahora zer** (6); **ahorik zabaldu** (20); **ahorik zabaltzen** (5); **ahotik ahora** (14); **bat ahora** (8); **eraman zuen ahora** (8); **eskua ahora** (10); **eskuak ahora** (6); **eta ahora** (32); **eta ahora eraman** (12); **ez zuen ahorik** (9); **zuen ahora** (12); **zuen ahorik** (9); **zuen ahorik zabaldu** (8)

ahotan dabil (9); **ahotan dabilen** (9); **ahotan dago** (14); **ahotan daude** (7); **ahotan egon** (8); **ahotan entzuten** (5); **ahotan eta** (8); **ahotan hartu** (26); **ahotan hartuta** (9); **ahotan hartzea** (6); **ahotan hartzen** (10); **ahotan hitz** (5); **ahotan ibili** (8); **ahotan izan** (33); **ahotan izan zuen** (8); **ahotan zebilen** (10); **ahotik ahora** (14); **ahotik atera** (32); **ahotik atera eta** (8); **ahotik ateratzen** (13); **ahotik belarrira** (7); **ahotik edo** (5); **ahotik entzun** (32); **ahotik entzutea** (7); **ahotik entzuteko** (5); **ahotik eta** (23); **ahotik ez** (17); **ahotik ez zen** (8); **ahotik ezagutu** (5); **ahotik ezin** (37); **ahotik ezin utzia** (15); **ahotik ezin utziak** (9); **ahotik ezin utzizko** (9); **ahotik halako** (6); **ahotik hartu** (5); **ahotik hartzen** (5); **ahotik hitz** (17); **ahotik ikasi** (7); **ahotik irten** (11); **ahotik irtendako** (6); **ahotik irteten** (10); **ahotik jakin** (8); **ahotik jaso** (5); **ahotik kanpora** (7); **ahotik kea** (5); **ahotik kendu** (16); **ahotik kentzen** (7); **ahotik lerdea** (5); **ahotik odola** (6); **ahotik zerion** (5); **ahotik zintzilik** (9); **aitaren ahotik** (5); **amaren ahotik** (6); **askoren ahotan** (19); **bat ahotik** (7); **baten ahotan** (17); **baten ahotik** (35); **beraren ahotik** (7); **bere ahotik** (28); **bozeramailearen ahotik** (5); **denen ahotan** (44); **denon ahotan** (13); **du ahotan** (7); **eledunaren ahotan** (5); **ere ahotan** (13); **ere ahotan izan** (8); **eta ahotik** (32); **euskaldunen ahotan** (5); **frantziskoren ahotik** (7); **gehienen ahotan** (5); **guztien ahotan** (34); **guztion ahotan** (10); **haien ahotik** (11); **haren ahotan** (10); **haren ahotik** (65); **hartu zuen ahotan** (11); **hitzak ahotik** (6); **horren ahotik** (8); **inoren ahotan** (5); **jendearen ahotan** (16); **mihia ahotik** (6); **ministroaren ahotik** (5); **nire ahotik** (37); **pipa ahotik** (7); **ren ahotik** (6); **zituen ahotan** (8); **zitzaion ahotik** (13); **zuen ahotan** (17); **zuen ahotik** (17); **zure ahotik** (15); **zuten ahotan** (6)

ahoz aho (105); **ahoz ahoko** (11); **ahoz behera** (26); **ahoz edo** (6); **ahoz eta** (16); **ahoz eta idatziz** (8); **ahoz goiti** (7); **ahoz gora** (93); **ahoz gora etzan** (8); **ahoz gora etzanda** (20); **ahoz hitz** (5); **ahoz nahiz** (6); **ahoz zein** (6); **eta ahoz** (36); **hori ahoz** (6); **izena ahoz** (5); **profetaren ahoz** (5); **ura ahoz** (5); **zen ahoz** (5); **zuen ahoz** (5)

ahozko auzi (5); **ahozko auzi** (5); **ahozko bista** (5); **ahozko bista** (5); **ahozko epaiketa** (22); **ahozko epaiketa** (22); **ahozko epaiketan** (5); **ahozko epaiketan** (5); **ahozko epaiketarako** (5); **ahozko epaiketarako** (5); **ahozko eta** (22); **ahozko eta** (22); **ahozko eta idatzizko** (18); **ahozko eta idatzizko** (18); **ahozko euskal** (8); **ahozko euskal** (8); **ahozko euskara** (6); **ahozko euskara** (6); **ahozko harmoniak** (6); **ahozko harmoniak** (6); **ahozko hizkuntza** (7); **ahozko hizkuntza** (7); **ahozko jardunean** (8); **ahozko jardunean** (8); **ahozko katea** (7); **ahozko katea** (7); **ahozko katean** (7); **ahozko katean** (7); **ahozko katearen** (6); **ahozko katearen** (6); **ahozko kultura** (6); **ahozko kultura** (6); **ahozko literatura** (12); **ahozko literatura** (12); **ahozko literaturaren** (7); **ahozko literaturaren** (7); **ahozko nahiz** (6); **ahozko nahiz** (6); **ahozko saioa** (9); **ahozko saioa** (9); **ahozko saioan** (9); **ahozko saioan** (9); **ahozko tradizioa** (7); **ahozko tradizioa** (7); **ahozko trebeziak** (5); **ahozko trebeziak** (5); **da ahozko** (12); **da ahozko** (12); **du ahozko** (7); **du ahozko** (7); **dute ahozko** (5); **dute ahozko** (5); **eta ahozko** (32); **eta ahozko** (32); **zuen ahozko** (5); **zuen ahozko** (5)

---

ahoalde *iz* ahoaren aldea.

Mulhousen, berriz, ez zuen jokatu Bilbaok, ez baitzaio **ahoaldea** oraindik osatu. Berria - Kirola

Nolako **ahoalde** pollite! Nolako gustu freskue! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

ahoandi *izond/iz* gehiegi hitz egiten duena, esan behar ez lituzkeenak esaten dituena.

Gero bertako karlistak agertu ziren kalera, txindurrien moduan, egundo baino harroputz eta **ahohandiago**, eurek euretara antolatu nahian herria. Joseba Sarrionandia

Hi koldar **ahohandi** bat haiz, eta, bai, jakin ezak, honezkero ez duk gure bila inor etorriko, lau hilabete denbora puska polita da-eta! Karlos Linazasoro

Denborak, baina, oker nengoela erakutsi zidan eta luze barik ohartu nintzen **ahohandi** hutsak zinetela, mutil gehienak legetxe. Jon Arretxe

---

ahobateko *izlag/izond* aho batez gauzatua.

Oklahoman 1995.ean lehertu eta 168 pertsonen hilketa eragin zuen bonbaren konplize Terry Nicholsi heriotz zigorra kendu zioten atzo, auzitegian **ahobateko** erabakia lortu ez zelako. Berria - Mundua

DUPk Stormonteko legebiltzarrean duen taldeak goizean eginiko bilkuran **ahobateko** erreakzio positiboa izan du alderdiko buruak negoziazioez emandako azalpenen aurrean. Berria - Mundua

Irakeko Gobernuak ebatzitako hauteskunde prozesuak **ahobateko** babesa lortu bazuen ere, herrialde batzuetako diplomazia ordezkariek esan zuten finkatutako data bera ez zela baitezpada bete beharrekoa. Berria - Mundua

Erabakia **ahobatekoa** izan zen. Berria - Mundua

---

ahobatez ik **aho 5**.

---

ahobatezko *izlag* aho batezkoa dena.

Eurostoxx-50 indizeak ia **ahobatezko** igoerak izan zituen. Berria - Ekonomia

---

ahobatezkotasun *iz* aho batezkoa denaren nolakotasuna.

Eta era horretako erabakiak klase politikoaren erabateko **ahobatezkotasuna** beharko lukete, eta halakoak gaurkoaren oso bestelako jokaleku batean hartu ahal izango lirateke, indarkeriarik gabeko jokalekuan. Berria - Euskal Herria

---

ahobeltz *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* **1** *izond* ohiz kanpokoak ozen esaten dituen pertsona.

Prentsa abertzalea, berriz, hildakoa zikintzen saiatu zen: Gatzaga **ahobeltz** odolberoa zen, hordi, "biba Rusiaka" aritzen zen ostatuetan, sakristauari amenazo egin omen zion, eta txakur bat hil eta zatikatu ere ei zuen. ETC-prentsa

2 *bisigu ahobeltz* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Bisigu ahobeltza ("Beryx splendens") Berycidae familiako ur gaziko arraina da, mundu osoko ur epel eta tropikaletan bizi dena. ETC-entziklopedia

---

ahobero *(ETCn **570** agerraldi; orobat **aho-bero** ETCn **90** agerraldi)* *izond* mintzatzean, jarduna puztua eta areagotua azaltzen dituena. ik **aho-bero**.

Eta jadanik ez nuen hain zakarra eta **ahoberoa** ikusten. Jasone Osoro

Ez izan **ahoberoa**, Luisa! Jon Maia

-Utzidazu, jauna, **ahobero** horri mingaina mozten. Juan Kruz Igerabide

Grebalaririk bipilena ez zen izanen, baina ez zen handik zebiltzan **ahobero** anitzen gisakoa, fidantza osoa ukan zitekeen harengan. Xabier Montoia

Poujaderi eman zion botoa, apustu on bat bezala, inolako ziurtasunik gabe, eta **ahobero** handitzat bazuen ere. Joseba Urteaga

Agurtzanek dio gizonak oso **ahoberoak** direla, baina gero lau gauza sinple egiten besterik ez direla ausartzen. Luis Elberdin

Eskurik mugitu gabe! **Ahobero** lotsagabea. Anton Garikano

Berbak, berbak, berbak... parole, parole, parole... Eta zu, beti bezain **ahobero**, batez ere diru usaina sumatzen denean, ea zelako faborea zen hura. Sonia Gonzalez

Akats asko zituen, baina ez zen, ez harroputza, ez **ahoberoa** ere. Jon Muñoz

Hi... hi... hi... hi haiz hi **ahoberoa**! Xabier Paya

"Barka iezaiozu zure aita ergel **ahobero** honi", horrela hasten zen gutuna, "ezin damu handiagoa baitu esandako gauzengatik. Oskar Arana

Mitinlari **ahoberoa** izan daiteke zenbaiten ustean. Andoni Egaña

Napumoceno jauna egurketari izan zenekoa hitz egite aldera esandako kontutzat jo zuen Carlosek, gizon haren akatsik handiena **ahoberoa** eta gauzak jeneralizatu zalea izatea baitzen, Maria da Graçari esandakoaren arabera. Bego Montorio

Mutil serioa zen Doran jauna, ez arduragabea eta **ahoberoa**, besteak bezala. Irene Aldasoro

- Hori ring baten gainean ikusi beharko genikek, **ahobero** hori! Paddy Rekalde

Sams Al-Din merkatariari damutu egin zitzaion emaztea hain zakar hartu izana; emaztea ere haserretu egin zen bere buruarekin hain **ahoberoa** izateagatik. Patxi Zubizarreta

---

ahoberokeria *iz* ahoberotasun gaitzesgarria; ahoberoari dagokion esana edo kontakizuna.

Egunkariek ergelkeriak eta **ahoberokeriak** baizik ez zituzten esaten; yankiak ez omen zeuden prestatuta gerrarako; soldaduentzako uniformeak ere ez omen zituzten. Josu Zabaleta

- **Ahoberokeria** asko esaten dute Hogsmeaderi buruz, baina ziur diotsut, Harry, ez da esaten duten bezain leku zoragarria -esan zion serio-. Iñaki Mendiguren

Harryk entzun ahal izan zizkion mespretxuzko **ahoberokerien** arabera, Malfoy ziur zegoen Buckbeak hil egingo zutela, eta oso pozik ematen zuen, berak eragin zuelako hori. Iñaki Mendiguren

---

ahoberotasun *iz* aho-beroaren nolakotasuna.

Defentsan jokalari onenetakoa da, baina etengabeko **ahoberotasuna** eta jarrera oldarkorragatik egin da ezagunagoa. Berria - Kirola

---

ahoberotu, ahobero(tu), ahoberotzen da *ad* ahoa berotu.

Montoya bakarrik gelditzen da noizean behin **ahoberotu** eta giroari piper piska bat botatzeko. Berria - Kirola

---

ahoberritu, ahoberri, ahoberritzen *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* du *ad* tresna ebakitzaile bati ahoa konpondu.

Aizkora zorrozten denean **ahoberritzen** da eta tresna batzuk hala nola jorraiek bi aho izan ditzakete. ETC-literatura, saiakera

---

ahobete *iz* aho betean sartzen den kopurua.

-Snape izango da epaile? -esan zuen **ahobete** lokatz eztulka kanpora botaz-. Iñaki Mendiguren

· *(izen gisa)* Barneko irakidura sumatu nuen eta **ahobetekoak** esatekotan nengoen. Gotzon Garate

---

ahobeteka *adlag* ahoa beteaz.

Irrati eta telebistetan ere, esatariak eta intelektual usteko gonbidatuak, **ahobeteka** aritu ziren nire afera aztertzen, zein baino zeinago. Hasier Etxeberria

---

ahobitsetan *adlag* ahotik bitsa dariola.

Eliz-jantziz azaldu zen, elizakoak ematera bezala, eta eskuak luzaturik exorzismoak esan zizkion, lau gizonen artean emakumeari, **ahobitsetan** eta bihurrika, ohean eusten zioten bitartean. Josu Zabaleta

---

ahobizar **1** *iz* tresna ebakitzaileen ahoa.

Dena zen beti bezala, hotzikara bat izan ezik, **ahobizar** batena airean bezala, bien artean joan eta etorri. Anton Garikano

Horrelakoak ziren Ramsay jaunak ondoan egote hutsarekin seme-alabengan ernetzen zituen emozio azkarrak; hantxe, zutik, orain bezala, labanaren **ahobizarra** bezain argal eta estu, irri zuri batez. Anton Garikano

2 irud/hed

Ahobizarrik gabe mintzatu zen Zaragozako, Bartzelonako eta Sampdoriako erdilari handia izandakoa. Berria - Kirola

---

ahobuelta *iz* ahoaren buelta.

Ideien planoan gozatu zuen halere burutazio hura, **ahobuelta** osoan. Harkaitz Cano

---

ahodun *izlag* ahoa duena.

Gelako argitzalean irribarre egin zuen, jakin bazekielako begibistako sinbolo falikoak zirela, Lisboako Setioaren Historiak ametsera ekarriak, noski, baina sinbolo sustraituak, zalantzarik ez, baldin eta punta eta **ahodun** armek sustrairik badute. Jon Alonso

---

ahoeri *(corpusean ez dago; ETCn **51** agerraldi)* *iz* abereen ahoko eritasuna.

Sukar aftosoa edo **ahoeria** behi, ardi, txerri eta ahuntz azienden gaitza da. Sukarra izaten dute lehendabizi, eta aho, errape eta apatx artean zauriak. ETC-entziklopedia

Irlandak hiru partida gibeleratu behar izan zituen, bere garaian **ahoeri** gaitza zela eta. ETC-prentsa

Tren istripu larriek, **ahoeriak** eta dibinidadearen zigorrek ez dute deus balio tranpolin errenkarnatu bat edukiz gero aurkari. ETC-prentsa

Larrialdi egoera Kolonbian, **ahoeria** dela eta . ETC-prentsa

Behi eroarentzat, **ahoeriarentzat**, oilaskoaren gaitzentzat eta abarrentzat ez dago mugarik eta alor horretan Europaren betekizuna eta erabakitzen dituen politikak funtsezkoak dira. ETC-prentsa

Erresuma Batuak abelburuak esportatzea debekatu du, **ahoeri** kasu bat dela eta . ETC-prentsa

Abuztuaren hasieran Erresuma Batuan agertutako **ahoeri** kasuen ondorioz ezarritako debekua bertan behera utzi du Bruselak, eta ateak irekiko dizkio berriro ere Erresuma Batuko okelari. ETC-prentsa

Euskaraz betidanik aho-legarra edo **ahoeria** izen dotoreekin esan izan ditugu. ETC-prentsa

---

ahogain *iz* ahoaren gaina.

Ahogaina erretzen daut. Michel Oronoz

---

ahogingil *iz* ahosabaiko luzakin haragitsua, eztarrirako sarrera bi partetan zatitzen duena.

Hots ubularrak dira mihia eta ahosabai bigunaren ertza, **AHOGINGILA** EDO UBULA deitzen denaren artean airea estutuz edo etenaz ebakitzen direnak. Lourdes Oñederra

---

ahogorri **1** *izond* lotsa gutxikoa.

Jendearen artean nahasturik eta burumakur, problemarik gabe iritsi nahi nuen gelara, inoren galdera **ahogorririk** eta adar-jotze alurik gabe. Anjel Lertxundi

2 *bisigu ahogorri* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Uztarian, zintzilik, **bisigu ahogorri** bat, itsasuge bat eta bi txitxarro beltz zekartzan, eta fusilaren puntan, bizirik oraindik, paneka txiki bat. ETC-literatura, saiakera

Bisigu ahogorria, berizidoen familiako itsas arraina. ETC-entziklopedia

Bisigu ahogorria (Beryx decadactylus). ETC-prentsa

Arrainak: Ongi garbitu, eta gordinik, zatitan, izoztu daitezke, edo zenbait modutara prestatuta (legatza saltsan, **bisigu ahogorria** tomatearekin...). ETC-prentsa

"Nekeza da bazterketa saihestea bisiguaren eta **bisigu ahogorriaren** kasuan, arrantzaleek oso kuota txikia baitaukate espezie horietarako", azaldu du Santurtunek. ETC-prentsa

---

ahogozagarri *(orobat **ahogozogarri** g.er.)* **1** *izond* ahoa gozatzen duena.

Fruta eta barazki **ahogozagarriak** ez biltzea. Edorta Agirre

Munduko tortilla frantsesik **ahogozagarriena** prestatzen dut nik. Edorta Agirre

Dodov pastillatxoak xukatzen ari zen, **ahogozagarri**. Karlos Linazasoro

Giza-tximinoa amorruz bihurrikatzen zen urrutitik erakusten zizkioten janari **ahogozagarri** haiek ikusita. Josu Zabaleta

Hartan aritu gabeei gehienean gure doktrina garratzagoa iruditzen zaienez gero eta jendeak beldurturik atzera egiten duenez gero, gure doktrina Pierideen hizkuntza **ahogozagarrian** azaldu eta Musen ezti gozoz gantzutu bezala egin nahi izan dizut. Xabier Amuriza

ahogozagarriagoak direlako. Edorta Agirre

2 *iz* ahoa gotzatzen duen gauza.

Alderdi gastronomikotik, olio ederra baliatzeak entsalada "zaporedun"ari eransten dion **ahogozagarria** esker on-onekoa da; hazi-olioek, orokorki, ez dute jakia grazia bereziegiaz janzten. Edorta Agirre

Ez zegoen guretzat **ahogozagarririk**, juanola, erroskila, goxo, T.-ko berezitasunik. Karlos Linazasoro

· Nazioen irri-lelo egin gaituzu, herrien **ahogozagarri**. Elizen arteko biblia

---

ahogozatu, ahogoza(tu), ahogozatzen **1** janari edo edari baten zaporea poliki eta gozatuz dastatu.

Gustura jan zuen mokadu guztiak **ahogozatuz**. Lopez de Arana

Joxe Abeli batere jaramonik egin gabe hasi da zizak jaten, hozkada ttikitan, **ahogozatuz**. Pello Lizarralde

Jimmy bere osabaren aho serioari begira geratu zen, hark hitzak aletzen zituen bitartean, eta ez zuen **ahogozatzen** jaten ari zen bildots-txuleta urtsua. Lopez de Arana

Ni mini-sukaldean egon nintzen tarte luze batez, sojazko zerbeza bat **ahogozatzen** eta egunkari atzeratuak irakurtzen. Iban Zaldua

Jakitatezko eskarmentu zaharraren baserriko ogi eta tremesa lehorra **ahogozatu** ditut. Pello Zabala

Berandu jaiki eta ongi gosaldu dugu, aldi luze batez gure gosariak zer izanen diren jakinik, hemengo gutxiak **ahogozatuz**. Xabier Montoia

Hurrupatxoka **ahogozatu** zuen don Ottaviok kafea, hizketan jarraitu aurretik: [...]. Jon Muñoz

2 irud/hed

Haren harridura **ahogozatu** nuen. Aingeru Epaltza

"Bethlehemgo haurra" edo "Jesus" aipatzean, ezpainak mihiaz miazkatzen ditu, izen horien gozoa dastatuz eta **ahogozatuz**. Askoren artean

Mende hau izan baita aurrerapen izugarriak **ahogozatzeko** mendea baina, aldi berean, paradoxen gizaldia ere. Pello Salaburu

Baina gatozen egun naturalaren xarma **ahogozatzera** eta bihotz-mamian ezartzera: aire orbange zeharrargiak, eguzki printzen aurreko argixkoari basoko zuhaitz bakoitzari bere margo eta ukittu propialak eransten uzten dio, xuabe-xuabe alddatuz, lehor, hezedura janez, xurgaka. Pello Zabala

Jarraitu ez ezik, behin eta berriz irakurri nuen, silabak banan-banan aletuz, lerroz lerro **ahogozatuz**, ele eder haiek denak besterentzat ez baina niretzat balira bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez dakit, eta gainera ez zait axola, zeren furgonetaren leihora itsatsirik joan naizenean, bart Rubenekin igarotako une eztiak **ahogozatuz** joan bainaiz. Bernardo Atxaga

Ez dira, beraz, irensteko testuak, **ahogozatzekoak** baizik. Joxean Agirre

Stephenen bezperako KOIPU hura, berriz, hori baino konplexuagoa zen, kasu hartan nabarmen **ahogozatu** baitzuen soinua, nik emandako enfasi bitxia. Xabier Olarra

Zuen zentzumenak edertasunari erreparatzeko sortuak dira, hura ikusteko, arnasteko, **ahogozatzeko**, aditzeko, miresteko. Patxi Zubizarreta

---

ahogozatze *iz* janari edo edari baten zaporea poliki eta gozatuz dastatzea.

Sukaldariak jaki bat prestatzen duenean era arrazionalean egina dagoela esan dezakegu; baina era arrazionaleko zaporea duela esatea ez du hizkuntzaren ohiturak onartzen, inolako kanpoko kausarik ez dagoelako; dastamenaren **ahogozatze** presentea baino ez dago. Imanol Unzurrunzaga

Sexu-jardunak gure bizitza osoaren zati txiki-txiki bat hartu ohi du guztira, baina denbora asko eta zabala eskaini ohi diogu haren prestatzeari, imajinatzeari, estrategiari nahiz lanketari; burutu eta gero ere, luzaroan irauten digu haren ebokazioak, **ahogozatzeak**, oroiminak. Xabier Mendiguren Elizegi

---

ahogozo **1** *iz* dastamenak nabaritzen duen janari, edari edo gai baten kualitatea.

Ahoarekin ere gauza bera egin zuen, listua bizpahiru aldiz irentsiz, loaldi laburraren ostean geratu ohi den **ahogozo** mikatz hori kentzearren. Xabier Mendiguren Elizegi

Eztiak eta esneak ere mihiari **ahogozo** atsegina ematen diote; absenta higuingarriak eta belarmin gaiztoak, ostera, ahoa okertzen dute zapore zatarrez. Xabier Amuriza

Gurbe-pattarra ekarri zuten mahaira; Nozdriovek esan zuenez, esnegainaren **ahogozo** berdin-berdina zuen, baina -harrigarria- destilatu gabeko vodka zakarraren usain

ikaragarria zerion. Jose Morales

Kabiarra zuan **ahogozo** arruntarentzat. Juan Garzia

2 irud/hed

Aitaren ipuin haiek **ahogozo** ezin hobea utzi bide zioten Hans Christian Anderseni. Patxi Zubizarreta

Egunkariak eta beren liburuak miratzen ibiltzen dira halako hitzen bila, telebista eta irratia entzuten dituzte, eta, izer **"ahogozo"** bat aurkitzen dutenean, zerrenda batean sartu eta gorde egiten dute. Xabier Olarra

---

ahogozogarri ik **ahogozagarri**.

---

ahohandi *izond* handiustekeriaz, ahoberokeriaz mintzaten dena.

Hi koldar **ahohandi** bat haiz, eta, bai, jakin ezak, honezkero ez duk gure bila inor etorriko, lau hilabete denbora puska polita da-eta! Karlos Linazasoro

Denborak, baina, oker nengoela erakutsi zidan eta luze barik ohartu nintzen **ahohandi** hutsak zinetela, mutil gehienak legetxe. Jon Arretxe

Eta gero bertako karlistak agertu ziren kalera, txindurrien moduan, egundo baino harroputz eta **ahohandiago**, eurek euretara antolatu nahian herria. Joseba Sarrionandia

---

ahohitar *izond/iz* Itun zaharreko gizatalde bateko kidea.

Bigarren hilabetean bigarren taldearen buruzagia Dodai zen, **ahohitarra**; Miklot ere buruzagi zen talde hartan. Elizen arteko biblia

Honen ondoren, Eleazar, Dodo **ahohitarraren** semea, hiru gudari haietakoa. Elizen arteko biblia

Huxako Sibekai; Ilai **ahohitarra**. Elizen arteko biblia

---

ahokada **1** *iz* ahotik behingoan botatzen den aire, ke edo isurkari zatia. ik **bafada**.

Elkar ezagutzen dugu dagoeneko -zigarro kearen **ahokada** bota du Eñauten aurpegira-. Sonia Gonzalez

", eskatu zion Josebak ke **ahokada** bat aurpegira botaz. Bernardo Atxaga

Tira, has gaitezen taxuz pentsatzen, esan nion neure burari zigarroari **ahokada** sakona egin ondoren, nikotinaren eragina biriken sakoneraino iristen zitzaidala sentituz. Joxemari Iturralde

Keinu gozakaitz batez andreak bizpahiru **ahokada** azkar eman zizkion piparen muturrari. Alberto Ladron Arana

Morales jaunak beste **ahokada** bat eman zion zigarroari eta hautsontzian pausatu zuen. Joxemari Iturralde

Koronelak **ahokada** bat ke, urdina, sabairantz bota zuen. Lopez de Arana

Bere ahoa lepo zurian galtzen zuen gero, amuarrain izutu baten modura ahoa urduri ireki eta itxiz, eta **ahokada** bakoitzean bere lurrin gozoa irensten zuen. Berria - Kultura

2 irud/hed

Hartzen zuen **ahokada** bat, pixka batean ahoan eduki, aho-sabai guztia busti, eta, gero, tximiniara tu egin eta isurtzen zuen. Irene Aldasoro

Arratsean ohartzen ginen istant batez ere ez ginela isilik egon egun guztian, ezta, haizeak nolako gustua sentitze aldera, aire-**ahokada** bat hartzeko ere. Fernando Rey

Kontua da susmoek eta itxaropenek bat egin zutela atzo Mont-Ventoux mendi mitikoan, eta txirrindularitzak aspaldi hartu duen arnas **ahokada** handiena hartu duela, Igorreko (Bizkaia) gazte ausart eta odolbero baten erruz. Berria - Kirola

Segitzen zuten beren esplikazioetan jator-jator, gero-eta beroago halere, harik-eta, halako batean, gogoan ondo puntapaxtuta gelditu zitzaidan **ahokada** hauxe iritsi zen arte: Euskal Herriak bere buruari gainez egiten dio. Iñaki Segurola

3 behingoan ahoratzen den janari kopurua.

Nofuturek, trago handi bat ur edan, eta bi **ahokada** ale jan zituen. Jon Muñoz

Loroak **ahokada** batean irentsi zituen abokateak. Jon Muñoz

Haren ahoak apropos egina zirudien arkumea edo antxumea **ahokada** batez irensteko. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahokada bat** (7); **beste ahokada** (3)

---

ahokadura *iz* ahokatzea, enkajatzea.

Berrikiago, altzairuzko aleazioz eta zenbait gai plastikoz egin dira bolaren zein **ahokaduraren** protesiak. Irene Aldasoro

Ontzi horretan balbulak egingo dira doi-doi estututa hodien goiko **ahokaduretan**, hain zuzen ere, hodien zuloak ondo itxi eta haizearekin ontzian sartu dena ateratzen ez uzteko moduan. Santiago Iruretagoiena

Teoria horren oinarrietako bat kontinenteen arteko **ahokadura** da. Joseba Sarrionandia

---

ahokaleku *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi) iz* ahokatzeko zuloa. ik **ahokatu**.

Metalezko ate huts eta markoetako **ahokalekuetara** eta hutsuneen antolamendura egokitzeko fabrikatutako banda landatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, talken aurrean erresistentzia handia erakusten dute eta **ahokaleku** txikia behar dute. ETC-entziklopedia

Ahokaleku ildaskatu bat ere bai, non, intxaurra edo beste edozein fruitu lehor jartzen den, honela, aparatuaren beste besoarekin indarra eginez, oskola hautsi dadin, fruituaren mamia eskuratu ahal izateko. ETC-entziklopedia

Artekak erabilgarritasun ugari ditu, esate baterako, juntura torikoen **ahokalekuentzako**, hari-irteerentzako, presio-zirrindolentzako, etab. ETC-entziklopedia

Puntzoiak alokaturik ditu horien buruentzako **ahokalekuekin**. ETC-entziklopedia

---

ahokari **1** *izond/iz* ahotsez mintzatuz, haizea aho barrunbetik kanporatuz ahoskatzen dena.

Bokal sudurkarien nolakotasuna okerrago bereizten da bokal **ahokariena** baino; horregatik, esan daiteke bokal **ahokariak** eraginkorrago direla seinale akustiko diren bezainbatean. Lourdes Oñederra

Terminologia eta sailkapenaren tentaldian erorita, pentsa liteke hots **AHOKARIAK** airea ahotik aterata ahoskatzen direnak direla eta sudurkariak, airea sudurretik aterata ahoskatzen direnak. Lourdes Oñederra

Bokal **ahokariekin** nahiko ez duen hizkuntzak bakarrik beharko ditu bokal sudurkariak. Lourdes Oñederra

Bokal-**ahokari** edo igurzkari-ahoskabe loturak askatu edo murriztu egin beharko ditu frantsesaren ahoskeraz jabetzeko. Lourdes Oñederra

2 ***kontsonante ahokari*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Kontsonante ahokarietan, aire fluxu guztia ixten da erabat (hersketa fasea), eta presio diferentzia bat eragiten du artikulazio tokitik aurrerako eta lehenagoko guneen artean. ETC-entziklopedia

---

ahokaritasun *iz* ahokaria izateko nolakotasuna.

Zailtasuna menperatuta, aukera dute bokaltasuna **ahokaritasunarekin** edo sudurkaritasunarekin lotzeko. Lourdes Oñederra

---

ahokatu, ahota(tu), ahokatzen du *ad* giltzadurez eta kidekoez mintzatuz, bola itxurako atala aho itxurako atalean sartu; buru edo mutur bat dagokion zuloan sartu.

Gurpil eskerga bat da, mendirik garaienaren gailurrean finkatua, zeinaren izpi erraldoiei hamar mila atal apurrago baitaude **ahokatu** eta atxikirik. Juan Garzia

Bihurkina ezin duenean kanporago, edo herdoilak turnabisa **ahokatzen** eragozten duenean, turnabisa bera zintzel ipini eta mailuka apurtzen du. Koldo Izagirre

Piezak ondo **ahokatzen** ez direnean. Iban Zaldua

Osaba Lazaro bere zurezko hegazkinarekin etorri zitzaigun: handi samarra zen, eta bost piezaz egina -gorputz nagusia, hegalak, isatsa, lauburu baten forma zuen helizea eta azpiko gurpilak-, hegalak gorputz nagusiari irekitako zuloetan doi-doi **ahokatuta**. Joan Mari Irigoien

---

ahoko 1 *iz* zaldiei eta kidekoei, geldiarazteko, ahoan ezartzen zaien uhala, zaldizkoak eskuz gobernatzen duena. ik **muturreko 7**, **brida**.

Eleberri fantastikoan irudimenaren lurralde osoan ibiltzen da bere gogara: libre, basa, **ahoko** eta bridari soraio. Xabier Olarra

Ahoko bat ere inguratua zuen horrela erretzeko, lord-en moduan, hark esaten zuen bezala. Pello Lizarralde

Ahoko luze batez erretzen zituen zigarroak. Ander Irizar

2 ***ahoko flora*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Aho-flora, **ahoko flora** edo aho-mikrobiota ahoan bizi den mikroorganismoen multzoari deritzo. ETC-entziklopedia

3 ***ahoko mukosa***

-Hamar zentimetro kubiko bakarrik, profilaxi modura -berak ostera-, **ahoko mukosarentzat**. Joxe Austin Arrieta

4 ***ahoko pieza***[1] *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi) iz* haize-instrumentuetan, putz egiteko atala.

Energia-transferentzia hori, esaterako, kanpo-iturriaren energiatik -hala nola, klarinetearen **ahoko piezan** zehar bultzaturiko airetik- klarinetearen tutuko uhin geldikorren energiarako transferentzia zeharo lotuta dago 13. gaian aipaturiko erresonantzia-fenomenoarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ahoko pieza putz eginez jotzen diren haize-instrumentuetan, ezpainen kontra jartzen den edo ahoan sartzen den instrumentuaren pieza da. ETC-entziklopedia

5 ***ahoko pieza***[2] *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* hortza, hagina.

Afidoak intsektu txikiak dira, eta **ahoko piezak** (lau estilete tubular) hostoko edo zurtoineko bahe-elementu bakun batean sartuta elikatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***ahoko soinu*** *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)* ik **ahosoinu**; ; **harmonika**; **musugitarra**.

"Springsteen", esan zion Gigik burua altxatu gabe, erpuruarekin O.K. eginez, **ahoko soinuaren** doinu batzuk aditzearekin batera. ETC-literatura, saiakera

Por soñar lo imposible, eta Tomasek gustura jo zuen, baina haren **ahoko soinua** gustatzen zitzaidan niri eta ez ahoa, haren ezpainak beti zeuden-eta lehorrak. ETC-literatura, saiakera

Azken aldiko kontzertu guztietan bezala, teklatutik ia mugitu gabe eman zuen kontzertu osoa Dylanek, tarteka **ahoko soinua** jo bazuen ere. ETC-prentsa

Dylanek kantuaren amaieran **ahoko soinua** atera zuenean, ikusi genuen oraindik ere, Dylan hori,folkie-ena, dela publikoa gehien pizten duena. ETC-prentsa

Antonio Serranok ere ekarpen interesgarriak egin zituen **ahoko soinuaz**. ETC-prentsa

Ahoko soinua, gitarra, bonboa eta abar jotzeko aukera nahi zuen, eta lortu du. ETC-prentsa

Gitarra eta **ahoko soinua** ere maisuki jo zituen. ETC-prentsa

Hurrengoan gitarra eta **ahoko soinua** ekarri zituen, hurrengoan Olivier Durandekin bikotea osatu zuen... ETC-prentsa

Kontzertuaren erdialdera, giro intimoagoetarako eta folk doinuetarako tarte bat egin zuen, zenbaitetan gitarra akustikoarekin, zenbaitetan organu tradizionalarekin, eta **ahoko soinua** sarri erabiliz. ETC-prentsa

Ahotsa, gitarra eta **ahoko soinua** erabiltzen ditu Hammondek blues musika egiteko, eta berrogei urte daramatza errepide ondoko tabernetan eta antzoki handietan kontzertuak eskaintzen. ETC-prentsa

Gitarra, bateria, **ahoko soinua** eta berak egindako musika tresna bereziak jotzeaz gain, ahotsaz ere Irudian, Ben Sims britainiarra. ETC-prentsa

Larunbatetan, lanak amaitu ostean, **ahoko soinua** jotzen zien amak, eta dantzan aritzen ziren umeak. ETC-prentsa

Ahoko soinuaren notek dena estali zuten Gasteizko gauerdian, eta behe lainoak "herriaren keinua" jantzi". ETC-zientzia, zuzenbidea

Zaharrenak, Ramonek, musugitarra jotzen zuen, **ahoko soinua** alegia, baina utzi egin zuen. ETC-entziklopedia

7 ***ahoko soinu jotzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Amieva gitarristak eta Mingo Balaguer kantari eta **ahoko soinu jotzaileak** (Ceuta) country eta bluesa nahasten dituen proposamena aurkeztuko dute; bestetik, Harriet Tubman Triok (AEB) jazza eta bluesa nahastuko ditu. ETC-prentsa

Johnny Mars (Laurens, Hego Karolina, AEB, 1942) **ahoko soinu jotzailearekin** amaituko da jaialdia. ETC-prentsa

Junior Wells abeslari eta **ahoko soinu-jotzailearekin** lankidetza joria izan zuen hurrengo bi hamarkadetan. ETC-prentsa

Junior Watson gitarristak, Fred Kaplan teklatu jotzaileak eta Bob Corritore **ahoko soinu jotzaileak** osatutako hirukoteak lagunduko dute Gray kontzertuan. ETC-prentsa

8 ***ahoko zuloan***

33. minutuan, lehia desorekatzeko beste aukera ona izan zuen, baina Rekarteren erdiraketa ederra **ahoko zuloan** baliatzeko gauza ez zen izan. Berria - Kirola

Produktu naturalen industria garbi-ustekoari **ahoko zuloan** jarri zaio mamaxa. Iñaki Segurola

Otsoaren **ahoko zuloan** sartzen ari nintzela konturatu eta atzeraka egin nahi izan nuen, atea berriz zeharkatzeko, oraingoan etorritako bidetik alde egiteko, baina beranduegi zen: zurezko atetik gertuen zeudenek (haien artean mahaiburu zeudenek, eta hartan, erdian eseririk, neke handirik gabe Guebokinder zela identifikatu nuenak) ikusi [...]. Jon Alonso

9 ***ahoko zuloan jarri***

Produktu naturalen industria garbi-ustekoari **ahoko zuloan jarri** zaio mamaxa. Iñaki Segurola

10 ***ahoko zuloan utzi*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Mohak **ahoko zuloan utzi** zion baloia, baina gora bidali zuen burukada. ETC-prentsa

Horren merituaren erdia, baina, Beginorena da, piloteoan nagusitu eta **ahoko zuloan uzten** baitio pilota lagunari. ETC-prentsa

Olaizola II.arentzat aurkari deserosoa da Merino II.a, ezkerrez ez diolako pilota **ahoko zuloan uzten**. ETC-prentsa

Huts larri bat egin zuen lehenik, Bakamburi **ahoko zuloan utzi** baitzion baloia, eta goiko jokaldietan ere konfiantzarik gabe aritu zen. ETC-prentsa

Irribarriak, berriz, tantoa azkar amaitzen du, eta ez dago hari **ahoko zuloan uzterik**. ETC-prentsa

11 ***ahoz ahoko***

Mezu hori da Jexuxek xuxen adierazten dakiena, **ahoz ahoko** kontakizunetarako aparteko grazia baitu. Xabier Etxabe

Baina nire ustekabe handian, beste bezeria mota bat hasi zitzaidan inguratzen, **ahoz ahokoaren** indarra, badakizue. Joxan Elosegi

Marisak uhin haietako bakoitza bere egiten zuen, **ahoz ahoko** itsaso mugagabe baten joan-etorrian murgilduta bageunde bezala. Juan Kruz Igerabide

12 *ahoz ahoko arnasketa* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Kike suspertzen saiatu nintzen ni, bihotz-biriketako bizkortzea egiten, eta **ahoz ahoko arnasketa** egiten, baina alferrik. ETC-literatura, saiakera

Funtsean, bihotzeko masajea eta **ahoz ahoko arnasketa** egitean datza bizkortzea: gaixoaren toraxaren erdialdean esku bat bestearen gainean jarriz, presioa egin behar da; lauzpabost zentrimetro sakatuz, minutuko ehun konpresio inguru egin behar dira. ETC-prentsa

Sorosleak saiatu ziren bere onera ekartzen **ahoz ahoko arnasketa** eginda, baina ezin izan zuten ezer egin. ETC-prentsa

Bitartean, berpizte lanak egitea (bihotz masajea eta **ahoz ahoko arnasketa**); eta, eskura izanez gero, desfibriladore erdi-automatikoa aplikatzea. ETC-prentsa

Azkenik, bosgarren faktorea ondoko itemek definitzen zuten: besteekin mahai-tresnak partekatzen dituena, **ahoz-ahoko arnasketa** egiten duena, besteen hortzetako eskuila erabiltzen duena eta komun publikoak erabiltzen dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aholatz **1** *iz* itsas ertzean bizi den arraina, bakailaoaren familiakoa *(Gaidropsarus vulgaris).*

Eta gero, ezer gertatu ez balitz bezala eta orduari erreparatu gabe, mahaira esertzen dira eta gaizkata-zopa hartzen dute, **aholatzarekin** eta hazi-guruinekin, eta gero pastel mordoa jaten dute, okelaz edo katuarrainez beteak, ikuste hutsarekin tripa-zorria esnatzen duten horietakoak. Jose Morales

2 *aholatz bostbixar* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aholatz bostbixar "Ciliata mustela" (Linnaeus, 1758). ETC-entziklopedia

3 *aholatz hirubixar* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Aholatz hirubixarra ("Gaidropsarus vulgaris") Lotidae familiako ur gaziko arraina da, ekialdeko Ozeano Atlantikoan eta Mediterraneo itsasoan bizi dena. ETC-entziklopedia

4 *aholatz mediterraneo* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Aholatz mediterraneoa ("Gaidropsarus mediterraneus") Lotidae familiako ur gaziko arraina da, ekialdeko Ozeano Atlantikoan eta Mediterraneo itsasoan bizi dena. ETC-entziklopedia

---

aholegar *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *iz* hegaztien ahoko eritasuna.

Nire gogoa ez zegoen garaipenaren turutaren hotsak aditzen ziren alturetara igotzeko moduan; aho-sabaia lehor nuen, mingainean **aholegarra** banu bezala. ETC-literatura, saiakera

Baina ahoko aften edo **aholegarraren** azpian nutrizio-mailako akats edo eskasiaren bat egoten da sarritan. ETC-prentsa

---

aholkatu, aholka(tu), aholkatzen **1** du *ad* aholkua eman.

Umeak ekartzeko ez bazen, jotze aldera jotzea galarazita zeukan antzinako erregimenaren dotrinak; gaurkoak **aholkatu** egiten du, eta derrigortzetik ere ez dabil oso aparte, beti ere seloxogiaren ordenantza eta neurrien arabera jotzekotan, jakina, larrua edo idiarena. Iñaki Segurola

Beren dohaiak ongi erabil ditzaten **aholkatzen** ditu: "Gizonen aurrean egin beza argi zuen argiak, ikus ditzaten zuen egintza onak, eta zuen zeruetako Aita goratu". Patxi Altuna

Aholkatu behin eta berriz gauza hauek, akasgabeak izan daitezen. Elizen arteko biblia

Bere buruaz kontu egitera **aholkatzen** zuen eta bere gaitzarentzat beharrezko sendabideak onartzera. Askoren artean

Ixilik egoitera **aholkatü** gütützü. Herria

San Frantziskok, hiritar haietaz errukiturik, otsoaren bila atera nahi izan zuen, hiritar guztiek aho batez ez joateko **aholkatzen** zuten arren. Askoren artean

Beti egokituko zaizu adarjoleren bat zure doinu latino eder hori ez galtzeko **aholkatuko** dizuna. Harkaitz Cano

Frantziskok berak gogotsu goretsi zuen eta goresten zuen Jauna, osasunean eta gaixotasunean, eta gogotsu **aholkatzen** zituen besteak ere gauza bera egitera. Askoren artean

Death Valleyko tenperaturak ikaragarri altuak direnez, motorrak gehiegi bero ez daitezen, aire egokitua ez piztea **aholkatzen** da errepide bazterreko seinaleetan. Patxi Zubizarreta

Fiskalak banaketa hesiaren bidea aldatzea **aholkatu** dio Sharoni. Berria - Mundua

Eredu eta erreferentzia modura, Belgika eta Quebeceko liburutegi nazionalei begiratzea **aholkatzen** du Juanenak. Berria - Kultura

EKAk halako elikagaien kontsumoa gutxitzea **aholkatu** du, "produktu horien epe luzerako eragina zehazteko ikerketa zientifikorik ez dagoelako". Berria - Euskal Herria

"Gainera, Espetxeetako Lege Orokorrak ere espetxe zigorrak presoaren jaioterritik gertuen dauden lekuetan betetzea **aholkatzen** du", dio Lasagabasterrek aurkeztutako eskaerak. Berria - Euskal Herria

Arreta osoz saiatzen ziren aita Frantzisko dohatsuak esana osorik betetzen; eta ez hark anaia gisa **aholkatuz** edo aita gisa aginduz adierazten ziena soilik, baita hark pentsatu edo hausnartzen zuena ere, baldin eta antzemateko modurik bazuten. Askoren artean

Diogenesek **aholkatzen** zuen guztia jarri zuen praktikan. Juan Garzia

Aurrerabide moduan, elkarrizketaren aldeko eragileen elkarlana **aholkatu** dute adituek. Berria - Euskal Herria

IAAFek bi urteko zigorra **aholkatu** du Torri Edwardsentzat. Berria - Kirola

-Terapia bat **aholkatzen** ari haiz, ezta? -galdetu nion, begirada aldatu eta errezeloz. Anjel Lertxundi

-Goiko apalean utz dezakezu poltsa hori - **aholkatu** zuen atseginez ondoan jarrita zihoan emakume zaharrak. Iñaki Zabaleta

Behin batez, Frantzisko begietatik gaixo zegoela, sendagileek kauterizazioa **aholkatu** zuten eta anaiek behin eta berriz erregutu zioten sendabidea onar zezan. Askoren artean

Bi hilabete geroago, tortura sistema hauei "baimena erretiratu" zien Rumsfeldek, ustez Armadaren abokatuek **aholkatuta**. Berria - Mundua

Erizain ikasketak burutzen dituenean, Suitzara jotzen du, bere aitaren lagun batzuek **aholkatuta**. Josu Zabaleta

Thormann zientzialariek WADAren aginduz egindako txostenean testa hobetzeko "hainbat pauso" ematea **aholkatzen** zuten. Berria - Harian

Legebiltzarrari ahalmen handiagoa ematea **aholkatzen** duen txostenaren "ikuspegi argia" zoriondu du. Berria - Mundua

OMEk, bestalde, artemisinan oinarritutako tratamenduak **aholkatzen** ditu paludismoaren aurka egiteko. Berria - Gaiak

Guk **aholkatu** dezakeguna da Batasunako kideei aurrez aurreko bilerak edukitzea ahalbidetzea. Berria - Harian

2 (nori osagaiaz)

Nik duela gutxi lanbide berria hasi dut eta berak **aholkatu** dit nondik nora jo. Jasone Osoro

-Lasai zaitez, Santana - **aholkatu** dio jaulier bibotedunak. Koldo Izagirre

Medikuek bizimodu normalarekin jarraitzen saiatzeko **aholkatzen** diete maiz gaixoei. Berria - Gaiak

-Benetan **aholkatzen** dizut -nik ostera-, etzazula hor arrainik jan, jauna, inoiz eta inola ere. Joxe Austin Arrieta

-Begira ezak lehenengo hemen inguruko elizetan - **aholkatu** zion Julenek-. Fernando Morillo

Lagun batek kalamua hartzea **aholkatu** zion, eta hala egin zuen hurrengoan. Berria - Harian

-Hobe duzu ugazabandereari kontra ez egitea - **aholkatu** zion amonak-. Patxi Zubizarreta

-Elkarrekin egon ginen azken aldian, ene gogoetak ez nitzan goraki erran **aholkatu** zenidan. Elena Touyarou

-Sar ezazu berriro kutxan - **aholkatu** zion Harryk, salatoskopioak txistu-hots sarkorra egiten baitzuen-, edo bestela esnatu egingo du hori. Iñaki Mendiguren

-Ez egin kasurik esaten dizutenari - **aholkatzen** zion Andresek emazteari-. Josu Zabaleta

Petrarca-ren *Canzionere* (Kantutegia) erosi dut gizonak **aholkatu** didan edizio komentatu eta merke batean. Berria - Kultura

Dusselek bereziki **aholkatu** zigun liburu hori, obra bikaina zela eta. Josu Zabaleta

Nik hau **aholkatuko** nizuke: [...]. Elizen arteko biblia

Krimentzat hartu behar al ditugu naturaren elkarketa gozoenak, berak bizikien **aholkatzen** eta agintzen dizkigunak? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hau ote da hain biziki **aholkatu** didaten idazlea? Harkaitz Cano

-Baina ez agertu nirekin horren txeratsu zure gurasoen aurrean - **aholkatzen** nion bihotz-bihotzez. Josu Zabaleta

Guztiei ohartarazten eta **aholkatzen** diet, ez ditzatela mespretxa eta juzga arropa leun eta kolorezkoz jantzirik nahiz jan-edari finak hartzen ikusten dituztenak. Askoren artean

Zeren eta ezagutza honek eramaten baikaitu maitasunak eta jainkozaletasunak **aholkatzen** diguna baizik ez egitera. Piarres Xarriton

Börsek bide ezkutu bat erakutsi zion, eta ezpata berekin eraman zezala **aholkatu**. Juan Kruz Igerabide

Atzo Iñigo Simon Asegarceko medikuaren kontsultan izan zen, eta, aste bukaera honetan behintzat, ez jokatzeko **aholkatu** zion. Berria - Kirola

Bere burua ondo prestatzeko **aholkatu** zion, hara azaldu baino lehen. Berria - Kultura

Han mahaia jartzeko **aholkatu** diot Peterri, zamau polit batekin, eta armairutxoa hormatik zintzilik jartzeko, orain mahaia daukan lekuan. Josu Zabaleta

Nik neuk **aholkatu** nion nazioaren onerako egia osoa ez esatea. Patxi Zubizarreta

Ez dizugu **aholkatzen** artxibora joatea dokumentu berezien bila, praktikoagoa baita dokumentu arruntez baliatzea. Askoren artean

Eta bisirrak Duban lehenbailehen hiltzea **aholkatu** baitzion, halaxe erabaki zuen erregeak. Patxi Zubizarreta

Lankide jatorrak, zeinekin, bidenabar, konfiantza handiegiko tratuan ez sartzea **aholkatzen** baitzidan, aipaturiko arrazoiengatik. Juan Garzia

Aitak **aholkatzen** zidan brillantina jartzeko eta amak gaueko sarea jartzeko ileak bere tokian gera zitezen. Pello Lizarralde

Denda beti bezala zabaltzeko **aholkatu** zion, inork deus berezirik susma ez zezan. Karlos Zabala

Zuzentasun-irizpide objektibo onartuak badaudenez, horiei jarraitzeko **aholkatzen** dizugu. Askoren artean

Komunikatzeko esaten digute mojek, begiraleek, komunikatzeko **aholkatzen** diguzu zuk zeuk ere. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aholkatu bezala (9); **aholkatu diagnostikoan** (3); **aholkatu die** (9); **aholkatu dio** (10); **aholkatu dit** (3); **aholkatu ditu** (3); **aholkatu dituzte** (3); **aholkatu dizu** (3); **aholkatu du** (11); **aholkatu dute** (12); **aholkatu eta** (7); **aholkatu nahi** (4); **aholkatu nion** (6); **aholkatu zidan** (15); **aholkatu zidaten** (5); **aholkatu zien** (11); **aholkatu zieten** (4); **aholkatu zigun** (3); **aholkatu zion** (53); **aholkatu zioten** (8); **aholkatu zituen** (11); **aholkatu zuen** (7); **aholkatu zuten** (7); **aholkatuko nizuke** (3); **aholkatuz eta** (3); **aholkatzen da** (3); **aholkatzen den** (3); **aholkatzen didazue** (5); **aholkatzen die** (3); **aholkatzen diet** (6); **aholkatzen diete** (8); **aholkatzen dio** (4); **aholkatzen ditu** (4); **aholkatzen du** (21); **aholkatzen duen** (9); **aholkatzen dugu** (5); **aholkatzen dut** (3); **aholkatzen dute** (7); **aholkatzen zaie** (3); **aholkatzen zidan** (5); **aholkatzen zien** (3); **aholkatzen zion** (10); **aholkatzen zituen** (7); **aholkatzen zuen** (7); **aholkatzen zuten** (3); **bilatzeko aholkatu** (3); **egitea aholkatu** (7); **egitea aholkatzen** (3); **egiteko aholkatu** (11); **egiteko aholkatu zion** (3); **egitera aholkatu** (3); **erabiltzeko aholkatu** (4); **erakasleak aholkatu** (3); **erakasleak aholkatu diagnostikoan** (3); **ere aholkatzen** (6); **eta aholkatzen** (13); **eta aholkatzen diet** (5); **eta aholkatzen dut** (3); **etortzeko aholkatu** (3); **hartzea aholkatzen** (3); **hartzeko aholkatu** (4); **hau aholkatu** (3); **ibiltzeko aholkatu** (4); **ibiltzeko aholkatu zion** (3); **jainkoa maitatzera aholkatu** (3); **jartzeko aholkatu** (3); **joateko aholkatzen** (3); **maitatzera aholkatu** (3); **maitatzera aholkatu zituen** (3); **ohartarazten eta aholkatzen** (7); **uzteko aholkatu** (3); **zer aholkatzen** (9); **zer aholkatzen didazue** (5); **zezan aholkatu** (3)

---

aholku 1 *iz* egin behar denari buruz ematen edo hartzen den iritzia. ik**kontseilu**.

Legea ez da **aholku** bat, agindu bat baizik. Esteban Antxustegi

Gure **aholku** guztiei entzungor, gogo onez onartu zuen bere patua. Aingeru Epaltza

Aholku hau ere ematen zien anaiei: mahai xume eta apalak erabili behar zituztela, honetatik sekularrak onbidean eraikiak izan zitezen. Askoren artean

-Lehengoan **aholku** bat eman nian eta bertze bat emanen diat gaur, dohainik eta lagunez lagun eman ere. Aingeru Epaltza

Bete ezazu **aholku** hau, laztana, zeren, benetan diotsut, halako izua diot ugalketari, non zure lagun izateari utziko niokeen haurdun geratzen zaren une berean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Testamentua, oroitzapena izateaz gain, oharpena eta **aholkua** ere bada (Test 34), non Frantziskok bere eta lehen anaiartearen historia Ordenaren orainarekin eta geroarekin lotzen duen. Askoren artean

2 (izenondoekin)

Neure bizilaguntzat hartzea erabaki nuen, bai bainekien **aholku** onak emango zizkidala, eta kezka eta atsekabealdietan adorea. Elizen arteko biblia

Huxaik, orduan, erantzun zion Absalomi: -Oraingoan ez du **aholku** egokia eman Ahitofelek. Elizen arteko biblia

Estrategiaz egiten da gerra, **aholku** egokien poderioz lortzen garaipena. Elizen arteko biblia

Egun batez, konfiantzaz hitz egin zion anai bati, bazekien-eta **aholku** zuhurra hartuko zuela harengandik. Askoren artean

Aholku zentzugabe hori gizonengandik heldu zaigu soilik, gizon ahulengandik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Idazlan akademikoa: **aholku** metodologikoak. Askoren artean

Eta inongo anaiak ez beza inolaz ere emakumerik bere obedientzia pean har, baizik eta, **aholku** espirituala eman eta gero, doala nahi duen tokian penitentzi bizitza egitera. Askoren artean

Eskatu aholkua jende zuhurrari eta ez mesprezatu **aholku** onuragarria. Elizen arteko biblia

Aita santua, pozez gainezka, presaz jarri zen entzundako **aholku** salbagarria betetzera. Askoren artean

Gizonei salbamen bidea hots egin eta **aholku** osasungarriak emanez. Askoren artean

Honetara eraman zuen bizimodu berriaren hasieran aurkitzen den **aholku** ebanjelikoak, alegia, ondasunei uko egin eta behartsuei emateak. Askoren artean

Hau da nire **aholku** bakarra: jar zaitez prozeduren jakinaren gainean, eta har ezazu, beharbada, lege-aholkulari bat. Oskar Arana

Arbuia itzazu zaldunaren **aholku** maltzurrak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kontuz ibili **aholku**-emailearekin; lehendabizi, jakin zeren beharrean dagoen. Elizen arteko biblia

Behin eta berriz esaten zien anaiei kapituluetan eta beste anaiarteko **aholku**-aldietan: [...]. Askoren artean

Jainkoaren gizonak debekatu egiten zizkien gehiegikeria horiek, **aholku**-hitz gozoz eta zentzuzko errietaz, eta anaien zauriak argibide zuhurren sendagaiez lotzen zituen. Askoren artean

Izenburu hori ez zaio edukiari egokitzen, **aholku**-hitzak baitira. Askoren artean

Iritsi zaizkigunak hauek dira: lege-dokumentu bat (Erregela), **aholku**-idazki bat, neurri on batean autobiografia dena (Testamentua) eta gutun batzuk. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Hau ez da nik nire burutik sortua, Don Kijotek ni uharte honetara etortzeko gau bezperan emandako arau-**aholku** haietako bat da. Patxi Ezkiaga

Ekintza ona da oso inori norberaren dirua interesik gabe mailegatzea, baina bistan da hori erlijio-**aholku** bat besterik ezin daitekeela izan, ez lege zibila. Iñaki Iñurrieta

Beraren aurrean belaunikatzeko gonbidapena da gorespen-**aholku** hau, Jauna aitortu, goretsi eta maitatzeko gonbidapena. Askoren artean

Ebanjelio santuko perfekzio-**aholkuak** agintzen duen bezala. Askoren artean

Janzkera-**aholkuak** hartzen! Xabier Olarra

Ia-ia ez nintzen gauza neure buruari moderazio-**aholkuak** emateko. Fernando Rey

5 ***aholku batzorde***

Esaterako, herrialde industrializatuei herrialde txiroen ekologiari eginiko kalteak ordainarazteko proposatu zuen **Aholku Batzordeak**. Berria - Gaiak

1996tik 2000ra bitartean Euskararen **Aholku Batzordean** izan ziren elkarrekin, "egungo Hizkuntza Biziberrizteko Planaren lehen urratsak eman zituen orduan». Berria - Kultura

1995-06-19: Greenpeacek Ingurumenaren **Aholku Batzordea** uzten du, urtegiaren kontrako protesta gisa. Edurne Elizondo

Kurrin-kurrun hau idazten ari naizen urtean, 2004an, Euskararen Kalitateari buruzko txosten bat idatzi eta plazaratu dugu, Euskararen **Aholku Batzordearen** mandatuz, Kike Amonarrizek, Andoni Egañak eta hirurok. Joxerra Garzia

b) Administrazio Kontseiluari, **Aholku Batzordeko** osoko biltzarrari eta lan taldeei doazkien dokumentuak prestatzea eta baita ere EEP-k antolatutako bilkura guzien antolatzea eta horietarik batzu animatzea. Herria

6 *aholku-emaile*

Adiskide eta **aholku-emaile** gisa Izetari nonahi segika, garai batean haren morroi izandako bat ibiltzen zen, Asensio izena zuena. Koro Navarro

Diru kontuetarako **aholku-emaile** zebilen industria-gizon batentzat, frantses batentzat. Fernando Rey

Arriskuak arrisku, **aholku emaileak** berak ez baitziren isildu, ezin hartuko ditugu haien aholkuak hitzez hitz. Joxerra Garzia

Kontuz ibili **aholku-emailearekin** ; lehendabizi, jakin zeren beharrean dagoen -bere onura baitu hark ere gogoan-, beraren erabakia zure aurkakoa izan ez dadin. Elizen arteko biblia

7 *aholku eman* aholkatu.

New Yorken nire lana **aholku ematea** da Counseling Center baten. Gotzon Garate

Holohan jauna egunero joaten zen Kearney andrea ikustera, punturen batean **aholku eman** ziezaion. Irene Aldasoro

Aholku eman ziezaioten, batzorde bat izendatua zuen De Gaullek, zientzia-arlo bakoitzeko ordezkari ziren hamabi "jakintsu"z osatua. Juan Garzia

Jatetxe onik ez zen ingurumarietan, eta berak **aholku ematen** zidan laboratorioan bazkaltzeko antola nendin. Juan Garzia

Hiri eta herrixketan zebilenean, guztiei **aholku ematen** zien Jainkoa maitatu eta beraren begirunean bizi zitezen, eta beren bekatuengatik penitentzia egin zezaten. Askoren artean

Ateratzen zaion ahotsa **aholku ematen** ari den guraso batena da, ez amorante batena. Oskar Arana

Elkarteak teknikari batzuk jarriko ditu ustiatzaileei **aholku emateko** . Berria - Euskal Herria

Zuhurrari **aholku eman** eta zuhurrago bihurtuko da, zintzoari irakatsi eta gehiago ikasiko du. Elizen arteko biblia

Ez naiz ni nor zuri **aholku emateko** . Oskar Arana

Badugu kazetari bat irakurleei **aholku emanez** zutabe bat idazten duena, eta harengana bidali ohi ditugu egunkarian agertzen direnak. Koro Navarro

Mikel Muñozek hainbat **aholku eman** ditu: hobe dela erreklamazioa zuzenean eta idatziz egitea telefonoz egitea baino, eta Industria eta Kontsumo Sailaren erreklamazio orriaz gainera Iberdrolak berak duena betetzea komeni dela. Berria - Harian

Portaeran gozoa, izaeraz lasaia, hitzetan atsegina, **aholku ematen** burutsua, hitzemana betetzen leiala, kontseilu ematen zuhurra, zereginetan eraginkorra, gauza guztietan onginahiz betea. Askoren artean

· OCDEk, Ekonomi Lankidetza eta Garapenerako Erakundeak, Enronekin gertatutakoa errepika ez dadin, sei **aholku eman** ditu: besteak beste, pentsio funtsak enpresatik legalki banatzea; eta lan kontratua,nazionalitatea eta sexua kontuan hartu gabe, langileak enpresaren pentsio funtsa pribatuetan parte hartzeko eskubidea izatea. Berria - Ekonomia

Ordutik aurrera, Frantziskoren zaindari bihurtu zen: **aholku** eta adore **ematen** zion, gidatu egiten zuen eta bihotz-bihotzez maitatzen. Askoren artean

8 *aholku eskatu*

Frantzisko santuak, berriz, aholkuak, zentzarazpenak eta aginduak ematen zizkien anaiei, Jaunari **aholku eskatu** ondoren hobekien iruditzen zitzaion eran. Askoren artean

Frantzisko dohatsuak otoitzean Kristori dei egin eta **aholku eskatu** zion honetaz. Askoren artean

Aholku eskatu zitzaien zientzialarien artean egokitu bainintzen, iradoki nuen egoki zatekeela saguaren institutu edo bat eraikitzea, etxepe batean elkarturik jardun zezaten, material bera zutela aztergai, genetistek, fisiologoek, patologoek, birologoek, onkologoek eta bestek. Juan Garzia

Ingalaterran, alabek maiz hausten dute legea eta beren gogara ezkontzen dira, gurasoei **aholku eskatu** gabe. Iñaki Iñurrieta

Gure adimenean sartzen diren gauza asko eta asko ulertzen ditugu, ez kanpotik datorkigun ahotsari galdetuz, espirituaren baitan gailentzen den egiari **aholku eskatuz** baizik; hitzek, agian, **aholku eskatzera** bultzatzen gaituzte. Imanol Unzurrunzaga

Iritsia zen unea, bati ala besteari hitz erdi esan orduko, elkarri begiratu eta elkar ulertzen zutena, elkarri begiradaz **aholku eskatzen** ziotena, nire hitz haiek, ni ez amorrarazteko nola hartu behar zituzten galdetuz bezala. Josu Zabaleta

9 *aholku eske*

Harengana jo zuen **aholku eske** , bere asmoa nola burutu jakiteko. Askoren artean

Lánská andrea, **aholku eske** natorkizu. Fernando Rey

Aholku eske etorri zitzaizkidan, baimena eman behar ote genien bai ala ez. Harkaitz Cano

Hemen arazoak dituen kristau bat dago, apaizarengana **aholku eske** datorrena. Koldo Biguri

Sarritan etortzen zaizkigu **aholku** eta laguntza **eske** etxetik alde egin duten neskak eta mutilak. Gotzon Garate

Bera monje budista batengana joan omen zen **aholku eske** . Joseba Sarrionandia

Erregutzen zion aitari joan zedila, **aholku eske** , kanbio eta burtsa agenteren batengana. Fernando Rey

Edan gabe baina itxuraz burutik nahasita eta gaixo zegoela ikusirik, isun bat jarri, eta medikuarengana joateko esan zioten, **aholku eske** . Xabier Olarra

10 *aholku hartu*

Hauxe zen hitz gakoa: **aholku hartzea** . Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahizpei aholku (7); **ahizpei aholku abestua** (7); **aholku abestua** (8); **aholku bakarra** (5); **aholku bat** (43); **aholku bat eman** (9); **aholku bat emango** (7); **aholku bat ere** (3); **aholku batzorde** (4); **aholku batzordea** (9); **aholku batzordeak** (10); **aholku batzordearen** (7); **aholku batzuk** (7); **aholku bera** (5); **aholku bila** (10); **aholku edo** (7); **aholku edo kontseilu** (5); **aholku egin** (3); **aholku emaile** (11); **aholku emailea** (3); **aholku emaileak** (3); **aholku eman** (34); **aholku eman ditu** (4); **aholku eman eta** (4); **aholku eman zion** (7); **aholku emanez** (4); **aholku emango** (13); **aholku emango zenioke** (5); **aholku ematea** (6); **aholku emateko** (9); **aholku ematen** (26); **aholku ematen ari** (5); **aholku eskatu** (9); **aholku eskatu zion** (3); **aholku eskatzen** (4); **aholku eske** (35); **aholku eske joan** (3); **aholku espiritualak** (9); **aholku eta** (28); **aholku eta adore** (5); **aholku ez** (3); **aholku hau** (18); **aholku hau eman** (6); **aholku hau ematen** (4); **aholku hauek** (6); **aholku hori** (11); **aholku hori eman** (3); **aholku horiek** (5); **aholku hura** (8); **aholku liburuxka** (3); **aholku metodologikoak** (3); **aholku on** (6); **aholku on bat** (3); **aholku onak** (13); **aholku onak eman** (3); **aholku praktikoak** (3); **aholku sorta** (4); **aholku txarra** (4); **aholku ugari** (3); **aholku zuhur** (3); **aholku zuhurrak** (4); **aholkuak aholku** (3); **azken aholku** (3); **baina aholku** (3); **bere ahizpei aholku** (7); **bere aholku** (4); **beste aholku** (7); **beste aholku bat** (5); **bi aholku** (3); **buruz aholku** (3); **da aholku** (6); **edo aholku** (6); **egin eta aholku** (3); **eman zion aholku** (3); **eta aholku** (51); **eta aholku bat** (4); **eta aholku eskatu** (3); **euskararen aholku** (9); **euskararen aholku batzordeak** (5); **ez da aholku** (4); **hainbat aholku** (16); **hainbat aholku eman** (5); **haren aholku** (6); **hark aholku** (3); **ingurumenaren aholku** (3); **ze aholku** (3); **ze aholku emango** (3); **zein aholku** (7); **zein aholku emango** (3); **zen aholku** (4); **zen aholku eske** (3); **zenbait aholku** (9); **zer aholku** (9); **zer aholku eman** (3); **zer aholku emango** (4); **zion aholku** (7); **zuen aholku** (11)

aholkua aintzat (6); **aholkua aintzat hartu** (5); **aholkua eman** (50); **aholkua eman zidan** (4); **aholkua eman zion** (12); **aholkua eman zioten** (4); **aholkua eman zuen** (3); **aholkua emango** (7); **aholkua ematen** (17); **aholkua ematen ari** (4); **aholkua entzun** (3); **aholkua eskatu** (16); **aholkua eskatu zien** (4); **aholkua eskatuko** (3); **aholkua eskatzen** (7); **aholkua eta** (20); **aholkua eta babesa** (4); **aholkua eta laguntza** (6); **aholkua ez** (4); **aholkua jarraitu** (3); **aholkua nahi** (4); **azken aholkua** (7); **bere aholkua** (5); **edo aholkua** (4); **egiteko aholkua** (9); **egiteko aholkua eman** (6); **eman zidan aholkua** (3); **emandako aholkua** (5); **eta aholkua** (22); **eta aholkua eskatu** (6); **ez egiteko aholkua** (4); **haien aholkua** (3); **haren aholkua** (5); **ibiltzeko aholkua** (4); **ibiltzeko aholkua eman** (3); **inguruko pedagogi aholkua** (3); **joateko aholkua** (6); **joateko aholkua eman** (5); **kontuz ibiltzeko aholkua** (3); **laguntza eta aholkua** (4); **legea eta aholkua** (3); **nire aholkua** (20); **pedagogi aholkua** (3); **sartzeko aholkua** (3); **zen aholkua** (4); **zidan aholkua** (4); **zioten aholkua** (4); **zuen aholkua** (5); **zure aholkua** (3)

ahitofelen aholkuak (3); **aholkuak aholku** (3); **aholkuak aintzat** (3); **aholkuak eman** (25); **aholkuak emanez** (6); **aholkuak emango** (3); **aholkuak ematea** (9); **aholkuak emateko** (9); **aholkuak ematen** (35); **aholkuak ematen zizkion** (4); **aholkuak ematera** (4); **aholkuak ere** (6); **aholkuak eta** (16); **aholkuak ez** (7); **aholkuak ez dira** (3); **aholkuak jarraitu** (4); **aholkuak jarraitzeko** (4); **aholkuak jarraitzen** (3); **aholkuak jaso** (4); **aholkuak onartzen** (3); **azken aholkuak** (4); **batzordearen aholkuak** (3); **bere aholkuak** (6); **beren aholkuak** (4); **buruzko aholkuak** (7); **emandako aholkuak** (8); **eta aholkuak** (34); **eta aholkuak ematen** (7); **haren aholkuak** (3); **izateko aholkuak** (3); **janzkera aholkuak** (3); **laguntza eta aholkuak** (3); **nire aholkuak** (6); **z aholkuak** (3); **zizkion aholkuak** (4); **zuen aholkuak** (3)

aholkuemaile ik **aholku 6**.

---

aholkulari 1 *iz* aholku ematen duen pertsona; aholku batzorde bateko kide bakoitza. ik**kontseilari**.

Vatikanoko **aholkulari** Vittorio Messonik neurria gaitzetsi du. Berria - Gaiak

Erreinuko ministro, buruzagi, satrapa, **aholkulari** eta gobernadore guztiek aho batez diote erregeak honako agindu hau eman behar lukeela: [...]. Jose Antonio Mujika

Han itxoin nuen bila etor zekizkidan probarako, hau da, nire klasea emateko ikuskatzailearen eta bi **aholkulariren** aurrean, letretako irakasle oso entzutetsuak hirurak ere. Joseba Urteaga

Esango didazue agintariek **aholkulariak** dituztela inguruan, eta haiek betetzen dizkietela hutsuneak. Joxerra Garzia

Joera hori ordea, Erregeren beraren, haren **aholkularien** eta inkisidoreen xedeen kontrakoa zen nabarmenki. Piarres Xarriton

Jean Baptisten aita Federiko II.a Alemaniako enperadorearen **aholkularia** izan baitzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gorteko hainbat, begi urdin sukartsu haiek liluratu ez zituzten gehienak, ez ziren batere gustura Rasputin ikusirik tsarraren eta, batez ere, tsarinaren **aholkulari** bihurturik. hotel-katea eta elikadura alorreko enpresa industrial handien **aholkulari** izaten segituko du. J.M. Olaizola "Txiliku"

Inuit Circumpolar Conference erakundeko giza eskubideen **aholkularia** da Dalee Sambo. Berria - Gaiak

Aholkulariak eta zuzendariak ohiko agur protokolarioak trukatu zituzten, eta solasari ekin zioten. Jon Alonso

Aholkulariak ere kalkulagailua astindu zuen eta azkenean bertako bisorean azaltzen zen zenbakia erakutsi: 2.345.567. Jon Alonso

Eskualdeburuen arduradun: Azarias, Natanen semea; erregearen **aholkulari** : Zabud apaiza, Natanen semea. Elizen arteko biblia

Harry Buffalokoa zen, New Yorkekoa, eta ez zen egundo margolari izan Erroman, ez zuen egundo Londresen antzoki bat kudeatu, eta ez zen egundo enkante-etxe baten **aholkulari** izan Parisen. Oskar Arana

Frantziskok lagun izango du eta **aholkulari** ere bai bere ibilbide zailean. Askoren artean

Misio buruak, berriz, Kubako Itsaso Ontzidiaren **aholkulari** jardungo du. Edorta Jimenez

Hidraulikako adituak badaki balioesten gorputzak fluidoak zirkularazteko eta kontserbatzeko dituen sistema burutsuak, eta berokuntza- eta eguraste-sistemetako **aholkulariari** miresgarri gertatzen zaizkio sudurraren eraginkortasuna eta ekonomia. Irene Aldasoro

Francisco Augusto de Thou (1607-1642), erregearen liburuzain nagusia eta Parlamentuko **aholkularia**. Juan Martin Elexpuru

Sarajevoko printzearen laguntzailea, estadu-arazoetako **aholkularitzaz** gainera, ile-apaintzaile eta jostunarena ere egiten zuen gizona. Felipe Juaristi

Probintziaburu, Predikari, Inkizisio Sainduko **aholkulari** , Trentoko Kontzilioko **aholkulari** , Heretikoen liburuen eta hor aurkitu proposamenen ikerlari. Piarres Xarriton

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aholkulari on eta txarrak. Elizen arteko biblia

Ausardia zertarako, salbazioa ihesean dago, bizirik irauteko sena **aholkulari** ona da. Jon Alonso

Gavard jaunak **aholkulari** txarrak ditu. Karlos Zabala

Aholkulari berezi bat ipini zuen EAJk Espetxe Instituzioetako Zuzendaritza Nagusiaren esanetara. Jokin Urain

Gogoan daukat Jose Etxebarrieta -garai hartako gure **aholkulari** politiko nagusia eta abokatu-taldeko partaiderik garrantzitsuena, beharbada- ihesaren ondoko guztia planifikatzen nola zebilen. Rafa Egiguren

Aholkulari juridiko bat, eskualdetako hiru teknikalari, bulegoetako langile eta bertze, guzientzat koordinatzaile orokor batekin. Herria

Orain Sacchi Parmaren **aholkulari** teknikoa da, jatorrizko garaira itzulita. Berria - Kirola

Kant aurreragorako utzita, Schopenhauer irakurtzen jarraitu zuen, **aholkulari** xelebre eta jostalariaren xarma baitzuen beretzat. Josu Zabaleta

Napoleonen **aholkulari** errimea lege gorabeheretan. Andres Urrutia

Kartomanteak, igarleak eta **aholkulari** sentimentalak besterik ez dira, eta hori baizik ez dira izango aurrerantzean ere. Karlos Zabala

Counselling Center-en bertan lan egiten zuen beste amerikar **aholkulari** bati iritzia eskatu nion. Gotzon Garate

Gehienak espainiarrak dira, noski, baina alemaniar eta italiar **aholkulariak** , militarrak nahiz zibilak, denean dira. Edorta Jimenez

Lortu ere lortu du bere enpresa sortzea, eta bere-kasako **aholkulari** eta aziendategien diseinatzaile-lanetan aritzea mundu osorako. Xabier Olarra

Eusko Jaurlaritzak elkarlaguntza-plangintza ekonomikorako **aholkulari** gisa Arantxa Georgiako errepublika sobietar ohira bidaliko zuela jakin nuenean. Iban Zaldua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ryutaro Hashimoto Japoniako lehen ministro ohia izango da NBEk eratutako **Aholkulari** Batzordeko burua. Berria - Gaiak

Nik nire **aholkulari** funtzioa nabarmentzen dut. Berria - Kirola

Aimar Olaizolak anaia nagusia izango du **aholkulari** lanetan igandean. Berria - Kirola

Hemendik aurrera, presidentearen **aholkulari** lanetan eta idazkari tekniko moduan arituko da. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hau da nire aholku bakarra: jar zaitez prozeduren jakinaren gainean, eta har ezazu, beharbada, lege-**aholkulari** bat. Oskar Arana

Kongresuan H&K-eko irudi-**aholkulariek** erakutsitakoa ongi asko antzeztu zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Frantziako enbaxadako kultura **aholkulariak** -mahai inguruaren buru zegoen- espainiar estatuan dagoen aniztasunaz hitz egin zuen. Edorta Jimenez

Norvegiako Legebiltzarreko zientzia **aholkularia** izan zen eta Norvegiako Institutu Polarreko ikerketa zuzendaria. Berria - Gaiak

Andrei Ilarionov Errusiako presidentearen ekonomia **aholkulariak** argi esan zien atzo ministroei: "Kyotoko Protokoloa sinatzea erabaki politikoa izan da; behartuta hartutako erabakia". Berria - Gaiak

Finantza-**aholkulari** , ikerlari, ingeniari, informatikako aditu, marketing eta publizitateko aditu. Koro Navarro

SEASKA, Iparraldeko Ikastolen Elkarteak, Pedagogi **Aholkulari** bat bilatzen du. Ana Urkiza

Ernest Crocker, lau koloreko sistema asmatu zuen kimikari estatubatuarra, gai zen 9.000 usain bereizteko, baina haren ahalmenak ohiz kanpokoak ziren, eta, noski, usain-**aholkulari** gisa enplegaturik egon zen urte askoan. Irene Aldasoro

Zure ama-**aholkularia** naiz. Juan Kruz Igerabide

Ama-**aholkulariak** edo gizarte-laguntzaileak koaderno polit bat eman zidan. Juan Kruz Igerabide

Ama-**aholkularia** bi astetik behin etortzen zitzaidan ikustera beti. Juan Kruz Igerabide

5 (izenondo gisa)

Nire ezagun **aholkulariarekin** hitz egin eta gero gau luzeak pasatu nituen kalkulagailua esku batean, gora eta behera, kontuak egiten. Jon Alonso

Behar bezalako erregeak druida **aholkularia** behar du. Joanes Urkixo

6 irud/hed

Egia da gaua dela **aholkulari** paregabea. Herria

7 ***aholkulari finantzario*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Shabir Shaik haren **aholkulari finantzarioari** 15 urteko kartzela zigorra ezarri zioten haren izenean eroskeria egiteagatik. ETC-prentsa

Wirtz Henieren **aholkulari finantzarioa** izan zen baita ere. Garai hartan, izotz patinajea eta izotz ikuskizunak oraindik ez ziren ezarritako ekitaldiak Estatu Batuetan. ETC-entziklopedia

8 ***aholkulari fiskal*** *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Zerga aitorpena egiteko kontratatutako **aholkulari fiskalak** diru publikoarekin ordaindu zituzten ministroek. ETC-prentsa

Salatzaileen artean Garcia Makua zegoen, Afer Taldearen **aholkulari fiskal** lanetan aritutakoa. ETC-prentsa

Julio Astudillo sozialistak zerga sinpleagoa eskatu zuen, "herritarrentzat, eta ez **aholkulari fiskalentzat** ". ETC-prentsa

Italiako hedabideek argitara eman dutenez, gaur bertan galdekatuko dute De Gregorioren **aholkulari fiskala** . ETC-prentsa

Aholkulari fiskal bat ezagutzen dut Bilbon, hauxe esaten diena Gipuzkoan edo Araban ondasunak dituzten bezeroei: -Ez aitortu, datuak ez dira gurutzatzen eta. ETC-prentsa

49 urte nituenean **aholkulari fiskalak** esan zidan kotizazio kuota igotzeko, pentsio duin bat edukitzeko, eta hala egin nuen. ETC-prentsa

Horretan lan egiten dute, besteak beste, Aretxabaletako Zenbaki aholkularitzako hamahiru profesionalek: abokatuak, **aholkulari fiskalak** , lan arlokoak eta finantzetakoak. ETC-prentsa

Bere aita Ferdinand zuen izena eta **aholkulari fiskala** izan zen. ETC-entziklopedia

9 *finantza-aholkulari*

[...], piramide moduan antolatua, eta New York, Tokio edo Londreseko egoitza zentraletik kontrolatua, desagertzen hasi da, sare-forma duen mundu osoko egitura baten mesedetan; egitura horretan, kapitalaren jabetzak garrantzi gutxiago du, proiektu konplexuak bideratzeko, sinboloen manipulatzaileen (nazio guztietako antolaketaaholkulari, **finantza-aholkulari** , ikerlari, ingeniari, informatikako aditu, marketing eta publizitateko aditu, eta abarren) ezagutzak baliatzeko eta konbinatzeko ahalmenak baino. Koro Navarro

Altzariekin batera eskuratu zuen, porrot eginiko **finantza-aholkularitza** bati merke erosiriko altzariekin, baina ez zen haiekin erabat etortzen. Migel Angel Mintegi

10 *lege aholkulari*

Israelgo fiskal nagusi Edna Arbelek agiri bat aurkeztu zion atzo Tel Aviveko gobernuko **lege aholkulariari** , non Israelgo lehen ministro Ariel Sharon ustelkeria eta eroskeriagatik auzipetzeko gomendatzen duen. Berria - Mundua

Alderdi politikoen **lege aholkularien** esku utzi zuten txosten hori, alderdi politikoek onespena eman diezaieten. Berria - Euskal Herria

Auzitegiak ikerketa bat abiatu du; bera pozoitzen ari zirela esan zion Milosevicek bere **lege aholkulariari** . Berria - Harian

Hau da nire aholku bakarra: jar zaitez prozeduren jakinaren gainean, eta har ezazu, beharbada, **lege-aholkulari** bat". Oskar Arana

Ipuinak entzuten ditut: ezaguna nuen **lege-aholkulari** baten emaztea jipoitu egin dute, semearentzako ahate-arrautza bat erosteagatik. Felipe Juaristi

11 *merkataritza-aholkulari*

Webgune bat abian jartzeaz gainera, noizean behin bidaiak egingo dituzte kutxako **merkataritza aholkulariek** . Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aholkulari ahmed (3); **aholkulari bat** (11); **aholkulari batek** (6); **aholkulari bati** (3); **aholkulari condoleezza** (9); **aholkulari condoleezza ricek** (5); **aholkulari dov** (4); **aholkulari eta** (16); **aholkulari gisa** (12); **aholkulari izan** (10); **aholkulari izan zen** (4); **aholkulari izandako** (5); **aholkulari izandakoak** (4); **aholkulari izango** (3); **aholkulari juridiko** (4); **aholkulari juridikoak** (4); **aholkulari lana** (4); **aholkulari lanetan** (7); **aholkulari militar** (3); **aholkulari nabil** (6); **aholkulari nabil abu** (6); **aholkulari nagusiak** (3); **aholkulari nagusiko** (5); **aholkulari nagusiko misioekin** (5); **aholkulari ohi** (9); **aholkulari ohi philippe** (3); **aholkularia da** (14); **aholkularia ere** (3); **aholkularia eta** (4); **aholkularia izan** (8); **aholkularia izan zen** (4); **aholkularia naiz** (3); **aholkulariak ere** (3); **aholkulariak eta** (6); **aholkulariaren arabera** (3); **ama aholkularia** (9); **ama aholkulariak** (10); **arafaten aholkulari** (5); **arafaten aholkulari nabil** (4); **arloko aholkulari** (4); **botilero eta aholkulariak** (3); **da haren aholkulari** (3); **defentsa ministroaren aholkulari** (3); **du hezkuntza aholkulari** (5); **eta aholkulari** (11); **eta aholkularia** (3); **eta aholkulariak** (5); **fujimoriren aholkulari** (3); **gaietarako aholkularia** (3); **haren aholkulari** (11); **hezkuntza aholkulari** (5); **hezkuntza aholkulari nagusiko** (5); **ingurumen gaietarako aholkularia** (3); **kanpainako aholkulari** (4); **lege aholkulari** (5); **ministerioko aholkulari** (3); **ministroaren aholkulari** (5); **nazionaleko aholkulari** (3); **nazionalerako aholkulari** (13); **nazionalerako aholkulari condoleezza** (6); **ohiaren aholkulari** (3); **presidentearen aholkulari** (14); **presidentearen aholkularia** (4); **segurtasun aholkulari** (3); **segurtasun aholkularia** (3); **segurtasun aholkulariak** (7); **segurtasun nazionaleko aholkulari** (3); **segurtasun nazionalerako aholkulari** (13); **sharonen aholkulari** (3); **zuen aholkulari** (3)

---

aholkularitza 1 *iz* aholkulariaren lanbidea eta jarduera.

Kontuan hartu beharrekoa da halaber enpresa multinazionalen eraginpean dauden jarduera pribatuen nazioartekotzea (banaketa-sareak, publizitatea eta **aholkularitza**). Koro Navarro

Alde batetik, usadiozko jardueretatik etorritako irabaziak (turismoa, bidaiak, pleitak edo nazioarteko aseguruak), eta, bestetik, nazioarteko liberalizazioaren mugimenduarekin zuzenago lotuak daudenak (banaketa, **aholkularitza** , publizitatea, ingeniaritza, telekomunikazioak...). Koro Navarro

Neurritasun handiagoa behar da **aholkularitzan** . Iñaki Iñurrieta

Osasun alorreko profesionalei informazioa eta trebakuntza eman behar zaizkie arazoak detektatzen jakiteko eta **aholkularitza** egokia emateko. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Aholkularitza lan baten ostean hartutako erabakia izango zen noski. Berria - Kirola

NBEren **Aholkularitza** Batzordea. Berria - Gaiak

Luis de la Calle Public Strategies **aholkularitza** enpresako zuzendariak. Berria - Gaiak

· Altzariekin batera eskuratu zuen, porrot eginiko finantza- **aholkularitza** bati merke erosiriko altzariekin, baina ez zen haiekin erabat etortzen. Migel Angel Mintegi

Telebista hizkuntzaren bultzatzeko, euskararen bulkatzeko, sortu zen, eta hizkuntza **aholkularitza** seriorik gabe dago oraindik. Pello Salaburu

· Lege **aholkularitza** bulego bat dugu. Berria - Gaiak

3 *aholkularitza juridiko* *(corpusean ez dago; ETCn **256** agerraldi)*

Elkarteak **aholkularitza juridikoa** eskainiko die ilustratzaileei, eta sektoreko berritasunen gaineko informazio gaurkotua heleraziko die: editoreen lan eskaintzak, lehiaketak eta deialdiak. ETC-prentsa

Gobernuko **aholkularitza juridikoak** planaren kontra nola jo aztertuko du. ETC-prentsa

Lehenbiziko langileak koordinatzailea eta laborarientzako **aholkularitza juridikoa** eskainiko duen teknikaria izanen dira. ETC-prentsa

Sanzen gobernuko **Aholkularitza Juridikoak** atzemandako irregularitasunei buruz txostena egin eta delitu zantzuak daudela ondorioztatu du berriki. ETC-prentsa

Hori kontuan izanda, kaltetutakoen elkarteak txosten teknikoak egin eta **aholkularitza juridikoa** ere eskatu zuen. ETC-prentsa

Horrez gain, hizkuntza eskubideei buruzko **aholkularitza juridikoa** eskaintzen du eta hizkuntza eskubideei buruzko kontzientziazio lana egiten. ETC-prentsa

Jaurlaritzako **Aholkularitza Juridikoko** Batzordeak eta Kontrol Ekonomikorako bulegoak proposamena onartu dute, baina neurri batean zalantzan jarri dituzte ildo horren egokitasuna eta eraginkortasuna. ETC-prentsa

Aholkularitza juridikoa emateko joan zen, Jugoslavia Ohirako Nazioarteko Auzitegi Penaleko eledunaren arabera. ETC-prentsa

Zerbitzu horrek Nafarroako euskaldunen hizkuntz eskubideak defendatzeko **aholkularitza juridikoa** eskaintzen du. ETC-prentsa

Zerbitzu korporatiboak herri-erakundean bilduta daude, hala nola **Aholkularitza Juridikoa** , Administrazioa eta Pertsonal Saila. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *lege aholkularitza*

Erabat zintzoak omen diren horien ardurapeko klubak ixten ari dira, eta **lege aholkularitza** eskaintzen diote emakume trafikoan nahastutako jendeari. Berria - Euskal Herria

"Gerra legeak ahalbidetzen die AEBei gerrillari etsaiak kargurik gabe edo **lege aholkularitzarik** gabe atxilo edukitzea, borrokek dauden bitartean», dio AEBetako legediak. Berria - Harian

Izan ere teknologia horiek erabat ahalbidetuko baitute iraganean ezinezkoak ziren hainbat zerbitzu etorkizunean erraz inportatzea edo esportatzea (itzulpenak, bideo-hitzaldiak, **lege aholkularitza** , edota zenbait medikuntza zerbitzu, besteak beste). Iñaki Heras

5 *zerga aholkularitza*

Baina, tamalez, askotan errealitatean ez da horrenbestekoa izaten, ezen errenta maila garaia dutenek **zerga aholkularitza** askoz hobea izateaz gain, zerga arautegi konplexuan jasotzen diren hainbat eta hainbat aldrebeskeria dela medio, finantza-ingeniaritza eragiketei onura handiagoa ateratzeko aukera hobea baitute, azken batean (hainbat goi-kargu ezagunek inolako lotsarik gabe erakutsi duten legez). Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aholkularitza batzordea (5); **aholkularitza enpresa** (5); **aholkularitza enpresak** (3); **aholkularitza eta** (13); **aholkularitza etxe** (3); **aholkularitza lana** (9); **aholkularitza lanak**

(4); **aholkularitza lanetan** (3); **aholkularitza zerbitzua** (10); **eta aholkularitza** (15); **kanpoko aholkularitza** (3); **laguntza eta aholkularitza** (3); **lege aholkularitza** (4)

---

aholkutxo *iz adkor* aholku xumea.

- **Aholkutxo** zuhur bat, Harry -esan zion Lockhartek paternalismoz, alboko ate batetik eraikinera sartzen ziren bitartean-. Iñaki Mendiguren

---

aholotu, aholot, aholotzen du *ad* ahoa lotu.

Inori zintzurra egin behar izan gabetanik jabetu ginen ontziaz, oinutsik, labana eskuan, bat-banaka **aholotu** eta estekatu genituen erreleboko guardak. Koldo Izagirre

---

ahomentatu, ahomenta(tu), ahomentaten du *ad* komentatu.

"Itzel joder, itzel" **ahomentatu** zuen Martak. Harkaitz Cano

Sumatu zenuen zer edo zer **ahomentatu** zutela bien artean, eta azkenik alfereza aterantz etorri zen ostera. Koldo Izagirre

Eta ez zuten nire aurrean deus **ahomentatu** nahi izan, kontra egin ez niezaien betiko moduan. Koldo Izagirre

---

ahomihi ik **mihi 11**.

---

ahomini ik **aho 12**.

---

ahopaldi ik **ahapaldi**.

---

ahopean *(ETCn **1.041** agerraldi; orobat **ahapean** ETCn **32** agerraldi) adlag* ia entzuten ez den ahotsez. ik**ahapean**; **ahopeka**; **ahopetik**; **ahopez**.

Egiarik beteenak, gordinenak eta aintzakotzat hartzekoenak erdi-gordean edo **ahopean** bezala esanak daude testu goresle-usteko honetan. Iñaki Segurola

Eta azkena! -egin zuen marmar Fredek **ahopean**. Iñaki Mendiguren

Greenpeacekoek **ahopean** aitortu zuten ekintzaren helburuetako bat aleak hartzea zela, geroago genetikoki aldatuta zeudela erakutsi ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Soropila zeharkatu zuen, lorategiko aulkian plasta! eseri eta **ahopean** abestu zuen: "Zorionak neuri.. Iñaki Mendiguren

Dursley jauna **ahopean** kantan ari zen lanerako gorbatarik aspergarriena aukeratzen zuen bitartean. Iñaki Mendiguren

Osaba Vernonek, zurbil-zurbil, zerbait xuxurlatu zuen **ahopean**, "mimblewimble" bezalako zerbait. Iñaki Mendiguren

Trelawney andereñoa **ahopean** xuxurlaka igaro zen haien ondotik. Iñaki Mendiguren

Ahopean kexatzen eta erdi-negarrez hasi zen. Askoren artean

Izarraitzen dago Alabier baserria, Loiola guztiek baino gehiago balio duena, hara begiratzea eta haren izena **ahopean** erabiltzeak lagun bailiezaioke munduko filosofia gezurrezkoari muzin egin nahi liokeen orori. Iñaki Segurola

Quirrellek madarikazioren bat bota zuen **ahopean**. Iñaki Mendiguren

Orain, lokarrarazi zuten neskatoak bat-batean egotzita, barrez, horrelakoak etorri zitzaizkion gogora, eta "zahartu naiz" esan zion bere buruari **ahopean**. Ibon Uribarri

Hermionek aginduak ematen zizkion **ahopean**, Snapek ez ikusteko moduan. Iñaki Mendiguren

- **Ahopean** esanda ere ondo asko aditu zenituen nire hitzak, eta ezin hobeto ulertu esan nahi nuena, nik uste. Xabier Mendiguren Elizegi

Keinu batez polizi buru nagusiari eser zedin agindurik, lerro gutxiko eskutitz bat diktatu zion **ahopean**. Karlos Zabala

Zer egiten ari da? -galdetu zuen Harryk **ahopean**-. Iñaki Mendiguren

-Hau da, hau, denbora alferrik galtzea! -esan zuen Hermionek **ahopean**, haserre-. Iñaki Mendiguren

Roberts jaunak kolpetxo bat eman zion ukondoaz Humphries jaunari, eta esan zion **ahopean**: [...]. Koro Navarro

Kazetariek hauxe entzun zioten **ahopean** esaten Rubalcabari, saioan egindako atsedenaldi batean: "Hauek ez dute ulertzen estatuaren muina bera dagoela arriskuan". Berria - Harian

Beren artean marmarka heldu ziren atorradunak, **ahopean** errukitsu mintzatuaz. Patxi Ezkiaga

Gavardek jarraitu zion lipar batean, sorbaldak goraturik, sorgin liztor haren gaiztakeriak ez zuela harritzen **ahopean** esaka. Karlos Zabala

-Bai, ondo -erantzun zion **ahopean**, lotsatu samar. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahopean bere (3); **ahopean esan** (8); **ahopean esan zuen** (3); **ahopean esanda** (3); **ahopean esaten** (3); **ahopean eta** (3); **ahopean harryk** (3); **ahopean hitz** (3); **ahopean hitz egin** (3); **ahopean kantari** (5); **ari zen ahopean** (3); **bere buruari ahopean** (4); **buruari ahopean** (4); **egutxik ahopean** (4); **esan zion ahopean** (10); **esan zuen ahopean** (21); **eta ahopean** (8); **harryk ahopean** (24); **hermionek ahopean** (4); **ronek ahopean** (7); **zen ahopean** (3); **zion ahopean** (15); **zion ahopean harryk** (3); **zion harryk ahopean** (9); **zuen ahopean** (27); **zuen egutxik ahopean** (4); **zuen harryk ahopean** (14); **zuen ronek ahopean** (4)

---

ahopeka *(ETCn **1.007** agerraldi; orobat **ahapeka** **2.482** agerraldi) izlag* ia entzuten ez den ahotsez. ik**ahapeka**; **ahopean**; **ahopetik**; **ahopez**.

-Hazi hondarrik? - **ahopeka**. Aingeru Epaltza

Ahopeka hitz egiten zuen, baina Liebkind Bendelekin ari zela konturatu nintzen. Koro Navarro

Lanak ematen zituen inondik ere, penitentzia eta barau eginaz, eta halere, lan eta lan ibili beharrak: eta bariku edo ostiralak ematen zuten buruhaustea gainditu aldera, Zazpi ankako atsoari, anka bat kendu zioagu esaten zizuten **ahopeka**. Pello Zabala

Oinetakoak eranzten eta gerrikoa askatzen entzuten diot, konketan hortzak garbitzen, hasperen egiten, **ahopeka** abesten, ohe karrankariaren maindire-tapakien azpian lau oinka sartzen. Oskar Arana

Djosa horrela ukatua eta iraindua ikusirik, **ahopeka** esan baitzuen, haserre, haietako egunen batean agertuko zela hildakoren bat Roberto Carlos edo reggae bat edo halako konturen bat eskatuz. Bego Montorio

Charlierekin batean ari naiz ahopetik, eskuak elkarri are eta estuago lotuta, gero eta ozenago ari garela **ahopeka**. Mirentxu Larrañaga

- Nahi baduzu elkarrekin zer edo zer hartuko dugu geroxeago -ia **ahopeka** esan eta zigarroa isiotzen jarri da Asun, Juanluri begiratu nahiko ez balio bezala. Paddy Rekalde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahopeka esan zion (6); **ahopeka esan zuen** (4); **ahopeka hitz egin** (6); **ahopeka hitz egiten** (3); **batek ahopeka** (4); **dio ahopeka** (4); **du ahopeka** (3); **esan zidan ahopeka** (3); **esan zuen ahopeka** (8); **gero ahopeka** (3); **ia ahopeka** (5); **zuten ahopeka** (3)

---

ahopekako *(ETCn 9 agerraldi; orobat **ahapekako**, ETCn 23 agerraldi)* *izlag* ahapeka esandakoa edo egindakoa. ik **ahapekako**.

Soberan sentitzen nintzen beren arteko irribarre eta **ahopekako** jardun gozo gogaikarri haien artean; han bukatzen ziren batak eta besteak nirekin izan zituen begirune guztiak. Anjel Lertxundi

Zaila da elizaren balioan edo Donatelloren eskultura eta erliebeetan arreta jartzea, erlauntza erraldoi baten adinako hotsa baitabil, **ahopekakoak** izan nahi duten jardunek eta hanka-pausoek sortua. Anjel Lertxundi

Hemen aurpegi kopetilun eta zaputzak baizik ez dira ikusten, intziriak eta **ahopekako** kexuak; gure egoera bat-batean izugarri okertu balitz bezala. Josu Zabaleta

---

ahopekatu, ahopeka(tu), ahopekatzen *(ETCn 17 agerraldi; orobat **ahapekatu**, ETCn 15 agerraldi)* du *ad* ahopeka esan. ik **ahapekatu**.

Mauletar baten mintza-doinuan **ahopekatu** zuen, nire paretik pasatzean. Aingeru Epaltza

---

ahopeko *(ETCn 83 agerraldi; orobat **ahopeko** ETCn 16 agerraldi)* **1** *izlag* ahopean esaten dena. ik **ahapeko**.

Ahopeko kanta. Anton Garikano

Lehenengo momentuan eta itxurazko kemenez bospasei ahots elkartu arren, **ahopeko** marmarra nagusituko da berehala, eta, geroxeago berriz, motorraren burrundara sorgarria. Xabier Mendiguren Elizegi

Makina bat zeharkako begirada eta **ahopeko** kontu ikusi eta entzun zuen denak ohitu ziren arte. Arantxa Iturbe

Harry aurrera abiatu zenean, berehala entzun zen **ahopeko** zurrumurru eta xuxurla-hotsa jangela osoan. Iñaki Mendiguren

Ahopeko irribarre kilikabera bat entzun nuen, zetazko jantziren baten fereka eta zure ahotsa isilka. Eduardo Matauko

Francis Díez-ena da gaurko hiri zoratuan nahi genukeen Lauaxeta laguna, sasi-lilien laztan bila dabilena, "eta mosuba dil atsekabez" behin eta berriro errepikatzen duena, **ahopeko** nahian eta zalantzan, gaueko eragozpenean, "bai" esanaz, desiraren baietzean eta ezinean. Joseba Zulaika

Pixkanaka isilduko ziren gure barreak; ez hala **ahopeko** komentarioak, ileen kontu hura axola handikoa baitzen guretzat. Xabier Mendiguren Elizegi

Segidan, emakumearengana makurturik, irribarretsu, **ahopekoetan** esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

2 (izen gisa)

Marmara bat han, **ahopeko** bat hemen: "Ia Rab!", "Ia Mu' in!", "Ia Razak! Patxi Zubizarreta

3 ***ahopekoetan***

Adelak eta Estherrek, ordea, **ahopekoetan** jarraitu dute, eta nik, begiak itxirik izan arren, haien haserre hitzak entzun ahal izan ditut. Patxi Zubizarreta

Segidan, emakumearengana makurturik, irribarretsu, **ahopekoetan** esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Hark, orduan, **ahopekoetan** : [...]. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahopekoetan esan zion (4)

---

ahopetik *(ETCn 292 agerraldi; orobat **ahapetik** ETCn 588 agerraldi)* **1** *adlag* ia entzuten ez den ahotsez. ik **ahapetik**; **ahopean**; **ahopeka**; **ahopez**.

-Ez! -esan zion Harryk **ahopetik** -. Iñaki Mendiguren

-Hortaz, kapela probatu baino ez dugu egin behar! esan zion **ahopetik** Ronek Harryri-. Iñaki Mendiguren

Ostatuan sartu orduko, Emmak **ahopetik** erran zidan: [...]. Daniel Landart

Elizan sartu ziren eta han zutik zirela eta meza hasi berria zela, Woitechek **ahopetik** esan zion Andreasi: [...]. Matías Mujika

Gero jakin nuen kordea galdu nuela bat-batean; amak **ahopetik** kontatu zionez ate atzean zain zegoen aitaordeari, eskuak zabal-zabal eginda ziplo erori nintzen. Eduardo Matauko

Ez duzue izango berririk, ezta? -galdetu zien **ahopetik**, Pomfrey andreak ez entzuteko moduan. Iñaki Mendiguren

Neure buruari kantatu nion **ahopetik**, martxa-lerroan alde egiten genuelarik: Charlie dut lagun. Mirentxu Larrañaga

Isil-misilka eta **ahopetik** mintzo ziren haren begien behako arras bestelakoaz, alegia Camillak ama izan zenez geroztik ageri zuenaz. Mirentxu Larrañaga

Kontsekrazioneko denboran apeza han izan balitz bezala sagara joiten zuten eta guziek otoitz berezi bat erraiten ukurturik eta **ahopetik**. Xipri Arbelbide

-Zer dun? -bota dio, **ahopetik** baina lehor, ate ondoan agertu den neska gazteari. Pello Lizarralde

Baina hain ere zuen laket urdaiazpikoa, non, erakusleihoetako tentazioaren aurrean, aldiro amor ematen baitzuen, hasperenka, **ahopetik** arneguka, eta begi-ertzetik niri begiraturik, nire epairen baten beldur bailegoen edo konplizitateren bat espero bailuen nigandik. Juan Garzia

Léonce andrea ere altxatu zen, hitz sorrak **ahopetik** esaka. Karlos Zabala

Barkamen-hitz bat atera zitzaion barreka **ahopetik**, eta Durant jaunak gonbitezkotzat hartu zuen begirada bat bota zion. Mirentxu Larrañaga

Neure buruari kantatu nion **ahopetik**, martxa-lerroan alde egiten genuelarik: Charlie dut lagun. Mirentxu Larrañaga

"Etzaiozu halakorik esan", **ahopetik** amak, "lehenaz gainera gehiago ikaratuko duzu eta. Xabier Mendiguren Elizegi

-Nora joan da Hankapalo? -hasi zen jendea galdetzen; **ahopetik** hasieran, ozenago gero. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan)

Jarri ginen eta bi hiparen artetik, amak erdi-**ahopetik** erran zuen: [...]. Daniel Landart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahopetik erran (3); **erdi ahopetik** (4); **esan zion ahopetik** (3); **eta ahopetik** (4); **harryk ahopetik** (8); **zion ahopetik** (4); **zion harryk ahopetik** (6); **zuen ahopetik** (5)

---

ahopez *(ETCn 9 agerraldi; orobat **ahapez** ETCn 33 agerraldi)* **1** *adlag* ia entzuten ez den ahotsez. ik **ahapez**; **ahopean**; **ahopeka**; **ahopetik**.

Afal aurretik lau pertsona ginen bere gelan, gurutzegrama bat betetzen laguntzen, eta ezin izan nion ezer esan, baina mahaira joan baino lehentxeago **ahopez** esan nion: [...]. Josu Zabaleta

-Doina Elvira emazteak, baztangak jota hiltzeko zorian zegoela, deitu senarra ohera, eta hala esan omen zioan belarrira **ahopez**: [...]. Patziku Perurena

2 ahozpez, ahoz behera.

Ezin izan zuen jarraitu, eta **ahopez** jarri zen. Bernardo Atxaga

---

ahopildu *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *izond* piezez mintzatuz, ertzen bat janda edo leundua duena. ik**alakatu**.

Oholaren alde berean, bi muturrak janak ditu, txistuan, lantzerka **ahopilduak**, ertzean ahopilo zorrotz samarra dutelarik. ETC-prentsa

---

ahopilo *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* ahobizarra.

Oholaren alde berean, bi muturrak janak ditu, txistuan, lantzerka ahopilduak, ertzean **ahopilo** zorrotz samarra dutelarik. ETC-prentsa

---

ahor *adlag* hara hor.

Ahor txakur bat ertzean. Harkaitz Cano

-Ahor txanela, **ahor** txanela! Edorta Jimenez

Ahor kontrastea: kalean bizi den gizasemea bere lo-kartoiak dotore biltzen eta bere ondoan turista parea, Manhattango plano erraldoia ezin tolesturik. Harkaitz Cano

", pentsatu zuen komedianteak; **ahor**, zure ezkutaria, **ahor** zure Santxo, egiten ari zaren erokeria honen barruan, erotu den mundu honetan, ehun eta hogei kiloko clochard-homeless-txanponerrukia, daukan itxaropen guztia eta behialako gaztetasun guztia begietan biltzen zaion emakume bazterreko bat. Harkaitz Cano

-Ez beti. **Ahor** aprobia. Txillardegi

", pentsatu zuen komedianteak; **ahor**, zure ezkutaria, **ahor** zure Santxo, egiten ari zaren erokeria honen barruan, erotu den mundu honetan. Harkaitz Cano

Ahor gaueko zaraten azalpena: sagua bere hortzekin horma zulatzen dabil. Harkaitz Cano

Bera marinel dabilen Aintzatasuna arrantzontzia beste baporeekin batera Bilborako da-eta, **ahor** herrikoak enbarkatzen. Edorta Jimenez

Esan, zera esaten digu gizarteak bere aho biotako batekin: eliteko kirolaria eredugarria delako, **ahor**! Joxerra Garzia

Esan, zera esaten digu gizarteak bere aho biotako batekin: eliteko kirolaria eredugarria delako, **ahor**! Joxerra Garzia

Ahor ba, sortzen den nazioarteko gatazka ez duk nolanahikoa, ez pentsa: nazioarteko zuzenbide pribatua bete-betean harrapatzen duen auzia duk. Harkaitz Cano

---

ahorako *adlag* jateko.

-Hor aurrean lurrina dariola dagoen azpil handi horrek eltzekari lodia izan behar du noski; eta, bat eta beste, puska asko izan ohi da eltzeko horietan eta **ahorako** gozo eta osasunerako on den puskaren bat ez topatzea, handia ere balitzake hain zuzen. Patxi Ezkiaga

A zein gozoa zuk hitz emana, eztia **ahorako** baino gozoagoa! Elizen arteko biblia

Jan eztia, ene seme, ona da eta, gozoa da abaraska **ahorako**. Xabier Kintana

---

ahoratu, ahora(tu), ahoratzen **1** du *ad* ahora eraman. (jangaiak)

Zutitu, azken txokolate-zatia **ahoratu** eta Gryffindorreko dorrerantz abiatu zen. Iñaki Mendiguren

Hitzaurre luze hau guztia egin zuen Don Kijotek, mokadutxo bat ere **ahoratu** gabe, besteak afaltzen ari ziren bitartean. Patxi Ezkiaga

Ze araudi eta ze arraio, eskuak atzean lotuta ezin delako edaririk **ahoratu** lotu dizkidate aurretik...! Koldo Izagirre

Bigarren aldiz, zigarroa **ahoratu** gabe gelditu zitzaidan, nire hortzetatik zentimetro urri batzuetara. Aingeru Epaltza

Deus **ahoratu** gabe gaudek goizetik. Aingeru Epaltza

Sofiak berriro Ritxiren buztantzarra **ahoratu** eta gora eta behera jarraitu zuen, sutsu, Susana eta Vanessak bezalaxe. Jon Arretxe

Mugimendu bizkor batean pipa **ahoratu**, kea irentsi, eta eta ke-zurrunbilo haietarik bat egotzi zion Mattini. Joan Mari Irigoien

Ekarri zizkiotenean, oliba bat **ahoratu**, eta begirada edari horixkaren aparrean kokaturik, pentsakor gelditu zen, ilehoria gogoan. Migel Angel Mintegi

Mertxika puska bat **ahoratu** nuen. Aingeru Epaltza

Potzolok aholkatu bezala, pilula bat **ahoratu** nuen etxeratu bezain sarri. Aingeru Epaltza

Etxeberriren emazte Léoninek zingar puska gordina **ahoratua** zuen, batek daki nondik aterea, eta sabeleko minak ohantzera behartu. Aingeru Epaltza

Ahoratua zuen mokadua -Salamancako txorizo muturra *romano* esaten dioten ogi koxkor batekin- irentsi ezinik geratu da. Patxi Zubizarreta

Egun osoa mokadurik **ahoratu** gabe eman nuen arren, ahalegin handia egin behar izan nuen bretoiaren eltze ketsuaren aitzinean esertzeko. Alberto Ladron Arana

2 (bestelakoak)

Eguerdiko pilulak **ahoratu** dizkit, hirurak batera, beste erizain batekin mintzatzen den artean. Eider Rodriguez

Santosek Fonsecaren berri eman zionetik noiz **ahoratu** zain zeukan galdera-parrastada egin zion: [...]. Josu Landa

Mutila, zozo moduan, isilik geratu zen; gero, zer esan ez zekiela erakutsiz, lelo bera **ahoratu** zuen berriro. Xabier Mendiguren Elizegi

Ebazpena artean bozkatua ez zelarik, berriz, hitz are gogorragoak **ahoratu** zituen Majzub al Khalifa Ahmed Sudango Nekazaritza ministro eta Darfurko gerrilla erakundeekin izandako elkarrizketetan Khartumgo agintearen ordezkaritzaren buru izandakoak. Berria - Mundua

Ildo berean, behin-behineko gobernuko presidente Gazi al Jauerrek honako hitzak **ahoratu** zituen: "Gure herriari eskatzen diogu ondoz-ondo lan egiteko, gure anai-arrebak eta gure seme-alabak hiltzen eta gure etxeak suntsitzen ahalegintzen diren horiei aurre egiteko". Berria - Mundua

Sattar Jabar apaiz xiitak okupatzaileen aurkako mehatxuak **ahoratu** zituen: "Hauteskundeak nahi ditugu; bestela, hemen den estatubatuar oro lurperatuko dugu". Berria - Mundua

-Gau on, Jimps -xuxurlatu zuen aharrausi bat **ahoratuz**-. Lopez de Arana

3 (adizlagunekin)

Laurak Gaizkari ia etengabe begiratzen zion, gailetak esnetan busti ondoren astiro **ahoratuz**, dastatuz eta irentsiz. Jon Arretxe

Hasi dira, beraz, afaltzen, jostunak arrain puska handi bat hartu du, eta braustakoan **ahoratu** dio nanoari. Patxi Zubizarreta

Orduan hitza berriz **ahoratu** zitzaion; ez nion ordea hitzaz baliatzen utzi. "Presaka nabil", erran nuen gero. Jon Muñoz

Goseak hilik etxe batera hurbildu zen gordeka eta zakurtegian agerian zeuden kroketak ahurtaraka **ahoratu** zituen. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahoratu eta (9); **ahoratu gabe** (5); **ahoratu nuen** (3); **ahoratu zituen** (9); **ahoratu zuen** (7); **antzeko hitzak ahoratu** (3); **bat ahoratu** (7); **bat ahoratu zuen** (3); **ere ahoratu** (3); **eta ahoratu** (3); **eta ahoratzen** (3); **hitzak ahoratu** (4); **hitzak ahoratu zituen** (4)

---

ahoratze *iz* ahora eramatea.

Urratua nintzen, gorputz osoa mindua eta gosez etena; nonahi zela ere, pausatzea eta zerbait **ahoratzea** bertze ametsik ez nuen. Aingeru Epaltza

Aho-aroan finkatua nago, aho-aro kanibal batean noski, **ahoratze**-modu guzti-guztiak atsegin baititut. Karlos Zabala

Haiek **ahoratze** hutsak goragalea ematen zion. Alberto Ladron Arana

ahosabai *(ETCn **694** agerraldi; orobat **aho sabai** ETcn **268** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ahosabai** agertzen da)* **1** *iz* aho barrunbearen goiko aldea, eztarriraino zabaltzen dena. ik **aho sabai**.

2 *ahosabai bigun*

Ahosabai bigunaren eta mihiaren arteko hersketa edo estutzeaz ebakitzen diren hotsez esaten da belar direla. Lourdes Oñederra

Asko dira dastamen-papilak: 9.000 inguru gizakietan, mingainean gehienak, nahiz eta **ahosabai bigunean** eta eztarrian ere badiren batzuk. Irene Aldasoro

3 *ahosabai-errezel* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Ahosabai bigun edo **ahosabai-errezela** aho-barrunbea eta faringea partzialki banantzen dituen mintzezko eta gihar muskuluzko tolesdura da. ETC-entziklopedia

Arnas aparatuko gaixotasunetan espezialista den Fernandez-Bujarrabal doktorearen esanetan, "zurrunga egitea ez da, inolaz ere, ongi lo egitearen sintoma" eta, aitzitik, zurrunga egiten duenak **ahosabai-errezela** (ahosabai biguna, alegia) hipertrofiatua eduki dezake. ETC-prentsa

Bereziki sudureztarrian Torus levatorius izena ematen zaio entzumen-tutuaren irekiune inguruan **ahosabai-errezelaren** gihar jasotzaileak bertako mukosan eragiten duen goraguneari. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gakoak polea funtzioa betetzen du, **ahosabai-errezelaren** gihar tinkatzailearen tendoiari norabidez aldatzen laguntzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *ahosabai gogor* *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Ahosabai gogorra edo hezurrezko ahosabaia masailezurrak eta hezur palatinoak eratzen duten giza ahosabaiaren zatia da. ETC-entziklopedia

Ahosabai gogorraren errezelean ere egon daitezke, bai eta ahosabaiaren aurreko pilareetan, amigdaletan, faringearen atzeko horman, esofagoaren sarreran eta matrailetako muki-mintzetan ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aho-barrunbeak **ahosabai gogorra** eta biguna ditu goialdean, masailak alboetan eta mihia eta aho-zorua behealdean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ahosabai biguna (**ahosabai gogorraren** atzealdeko haragi-hegala) irekirik dagoelako da hori, ahotik ez ezik sudurretik ere irteten uzten baitio aireari. ETC-zientzia, zuzenbidea

Anatomian **ahosabai gogor** (Palatum durum) eta Dura mater terminoetan azaltzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortz-hobien atzeko aldeak arku itxura du eta hobi-gainetik hasi eta **ahosabai gogorrera** arte iristen da, hots, ahoaren sabaira arte. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *hezurrezko ahosabai* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ahosabaia bi zatitan banaturik dago: aurrekoa edo ahosabai gogorra (baita **hezurrezko ahosabaia** ere) eta gibelekoa edo ahosabai biguna (baita ahosabai-errezela ere). ETC-entziklopedia

---

ahosabaiaurre *iz* ahosabaiaren aurrealdea.

Palatum edo ahosabaiak, hots palatal edo sabaikarietan; **ahosabaiaurreak**, hots SABAIAURREKOetan; goiko hortz-hobiak, hots HOBIKARIETAN. Lourdes Oñederra

---

ahoskabe *izond/iz* ahotsez mintzatuz, ahots hariak dardaratu gabe eratzen dena. ant**ahostun**.

Ba al dago *i* **ahoskabe** bat, hau da, laringe hotsik gabe artikulaturiko *i* bat? Isabel Arrigain

Teoriaz, mota bakoitzak glotiseko dardararik gabeko sudurkari bat, hau da, sudurkari **ahoskabe** bat du; hala, Eskandinabiar hizkuntzetan **ahoskabe** baten atzetiko *m* **ahoskabe** bat badago; frantsesez ere badaude adibide batzuk, baina hiztunek ez dute horietan osagai bereizle bat somatzen. Isabel Arrigain

Esan genezake, beraz, trabari **ahoskabe** bilakabide unibertsala euskararen igurzkari eta afrikatuen paradigman gordetzen dela. Lourdes Oñederra

Ingelesez voice hitza erabiltzen da ahoskorden dardararen emaitza adierazteko eta, horregatik, voiced ('ahostun') dira ahoskorden dardaraz egiten diren hotsak eta voiceless (**'ahoskabe'**) ahoskorden dardararik ez dutenak. Lourdes Oñederra

Gogoan izan behar da kontsonante eiektiboak **ahoskabe** izaten direla, baina inplosiboak ahostun izaten direla. Lourdes Oñederra

Konsonante **ahoskabearen** ekoizpenean, ahoskordak elkarrengandik urrun egoten dira, ez baitute dar-dar egin behar. Lourdes Oñederra

Hots horiek HERSKARI izan daitezke, horretarako aho gingilaren eta mihiaren atzealdearen artean biriketatik datorren aireari pasabidea ixten zaiolarik (q **AHOSKABEA**, G AHOSTUNA); IGURZKARI, pasabidea estutu bai, baina erabateko aire-etenik gertatzen ez bada (X **ahoskabea**, ahostuna). Lourdes Oñederra

Indoeuropeoaren ahostun hasperenduak **ahoskabe** hasperendu bilakatu dira. Isabel Arrigain

Sudurkari-**ahoskabe** bilkuraren kontrako debekuak aski laxatua behar zuen. Lourdes Oñederra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahoskabe bat** (4); **ahoskabe baten** (4); **ahoskabe dira** (3); **eta ahoskabeak** (3); **guztiak ahoskabe** (3); **trabari ahoskabeak** (3); **trabariak ahoskabe** (3); **txistukari ahoskabearen** (4)

---

ahoskabetasun *iz* ahoskabea denaren nolakotasuna.

Morfema elkarketa dinamikak sortzen dituen txandakatzeek ere erakusten dute elkarren ondoko trabarien berdintzea euskarak **ahoskabetasunaren** alde bideratzen duela: *esan du*, baina *ez tu esan*. Lourdes Oñederra

Hitz azkeneko **ahoskabetasunean**, bai ematen digu, ordea, herskari guztiak ahoskabetzeko baimena euskarak. Lourdes Oñederra

Euskal trabariak, neurri handi batean, AHOSKABEAK dira; alegia, trabariak **ahoskabetasunarekin** lotzen dituen ontasun edo BILAKABIDE fonetikoari amore ematen diote erabat. Lourdes Oñederra

Esku artean dugun arazoari dagokiola, /sg/ trabari bilkura ahoskatzeko zailtasuna trabari multzoko **ahoskabetasun**-ahostuntasun bilkura horretan legoke. Lourdes Oñederra

---

ahoskabetu, ahoskabe(tu), ahoskabetzen du *ad* ahoskabe bihurtu.

Berdin TXISTUKARIAREN ondoko /d/ *t* ahoskatzean: *ez da* /es da/ *Šesta*, non txistukari AHOSKABEAREN eraginez, HERSKARIA **ahoskabetuta** atera den. Lourdes Oñederra

Horregatik, txistukariaren indar asimilatzailea handiagoa da eta /d/, **ahoskabetuta**, t ahoskatzen da. Lourdes Oñederra

Baina **ahoskabetzen** bada z hori, irekidura txikiena eskatzen duen fonemetako bat denez, silaba bakar bat atzemango da, a-ren eta z-ren arteko aurkakotasuna dela medio, gutxi gora behera p< z< t entzunez. Isabel Arrigain

Hitz azkeneko ahoskabetasunean, bai ematen digu, ordea, herskari guztiak **ahoskabetzeko** baimena euskarak. Lourdes Oñederra

---

ahoskabetze *iz* ahoskabe bihurtzea.

Gertatu den hori **AHOSKABETZE** bat da. Lourdes Oñederra

Maila SINTAGMATIKOAN (hotsak hizketan bata bestearen atzetik kateatzen direnean) hitz-azkenean eta, oro har, trabari bilkuretan **ahoskabetzea** da nagusi euskaraz. Lourdes Oñederra

Hitz-azkeneko **ahoskabetzearen** indarraz jabetzeko, aski da kokaleku horretan agertzen diren herskariei erreparatzea. Lourdes Oñederra

Aoskabetze bilakabideak bizirik dirauela erakusten dute, besteak beste, ingelesezko MAILEGUETAN hitz azkeneko trabari ahostunen egokitzeek (*pub paf, web wep, wel*). Lourdes Oñederra

Oraingo AHOSKERAN horren pareko ezezko egiturek eta konposatu berrienek salatzen dute euskararen **ahoskabetze** joera ahultzen ari dela. Lourdes Oñederra

---

ahoskagarri *izond* ahoska daitekeena.

Idazten denak, oro har, irakurgarri eta **ahoskagarria** izan behar du, eta hori ez du ematen ez juntagailu gehiegi jartzeak, ez puntuazio zaila duten testuek. Joxerra Garzia

Ezinago esan- eta **ahoskagarriak**, zinez. Joxerra Garzia

Ezin da a-ren trataera biko hori, c> t< soilik -eta ez c< t<- baita **ahoskagarria**. Isabel Arrigain

---

ahoskapen *iz* ahoskatzea.

Etengabeko zartada eta keinada bat-batekoak egiten zituen eskuez, bere sorbalda xahutu eta esterilizatu gaberantz, ukitzeraino iritsi gabe, edo bere laguntzailearenganantz edo ispilurantz; bat-bateko bultzada edo ekinaldiak oinekin, edo ukituak hantxe inguruan zituen lankideei; eta **ahoskapen** zaparrada bat -"Uuu! Xabier Olarra

---

ahoskarazi, ahoskaraz(i), ahozkarazten du *ad* ahoskatzera behartu.

Gau hartan, Wilmarth andereñoa ez zen luzaroago aritu, Dianeren gurasoei "ololoñ" **ahoskarazteko** erretolikarekin. Mirentxu Larrañaga

Afrikatuen baldintza hori sendoago da, hitz barreneko silaba azkenean afrikatuen ordez IGURZKARIAK **ahoskarazten** dizkigun BILAKABIDEA (ts Š s) indartsu eta bizi delako oraindik ere. Lourdes Oñederra

Eleberrigile batek eguneroko bizitzan edozein esaldi ahoskatzen badu eta ondoren bera idazten ari den eskuizkribu batean ipintzen badu bere horretan, pertsonaia baten ahoan jarriz, edo egilearentzat jotzen den ahots anonimoari **ahoskarazten** badio, ezin da esan bi kasuetan enuntziatu bera denik. Xabier Arregi

---

ahoskatu, ahoska(tu), ahoskatzen **1** du *ad* hizkuntza hotsez mintzatuz, ahoaz gauzatu.

Hotsak **ahoskatu** eta entzun ahal izateari eskerrak dira posible gizakion elkarrizketa zuzenak. Lourdes Oñederra

Ahoskaturiko hitz bakoitza, giza hizketaldi konkretu bakoitza hizketa-hotsez osatua dago. Lourdes Oñederra

Ezin da **ahoskatzen** den moduan idatzi. Berria - Euskal Herria

Bokal kenketa eta kontsonante taldeen soiltzea harmonizatzeko aukera bilatzen zuen nonbait 3,8 urte zituen Ander euskaradun gasteiztarrak (Legorretako hizkeran hezia) honelakoak **ahoskatzen** zituenean: *tirgea, kokodirdua*. Lourdes Oñederra

Fátima da batzuentzat, eta Fatíma, neskatoaren hizkuntzan **ahoskatzen** omen den bezala, besteentzat. Joxerra Garzia

Osabaren ahotsa telefonoan entzun nuenean, hain pozik libre utzi nindutelako, ez nintzen hitz bakar bat **ahoskatzeko** gauza izan. Bernardo Atxaga

Ahoskatzen den hitz bakoitzak badu beregan botere ezkutu bat, eta are gehiago hitz idatzia bada. Matías Múgica

Zer zabiltza gero, Ruche jauna? - "Riche" **ahoskatzen** zuen, OLko kutxak ekarri zituzten garraiolariek bezala-. Jon Muñoz

"Zergaitik Jon ikusi nahi duzue?" 'John' **ahoskatzen** zuen, amerikar izen bat izan balitz bezala. Ramuntxo Etxeberri

Aski da ixxx bat **ahoskatzea** txutxu-mutxu berankorren bat isilarazteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Erdal maileguetako *g* bere horretan idaztea eta /g/ **ahoskatzea** onartu zen: biologia, geografia. Koldo Zuazo

Maileguetako *x* bokalartean *ks* **ahoskatzea**: taxi *taksi*. Koldo Zuazo

Frantsesez *r* ubularra **ahoskatzea** baldin bada ohiko erabilera, halere, hiztun batzuek *r* apiko-albeolarra **ahoskatzen** dute; eta hizkuntza ez da horregatik kaltetua gertatzen. Isabel Arrigain

Rognetta "r" frantsesa **ahoskatzen** zuen mutil altu bat zen, aurpegi osasuntsukoa. Fernando Rey

Bere izena Kuhalski edo Kuharski zen, Piettkak eta Zbixekek **ahoskatzen** zutenaren arabera, beti "harski" nabarmenduz, hor jarriz azentua. Urtzi Urrutikoetxea

Bokal arteko hasperen hori **ahoskatzeko** ez da horrenbeste aire behar. Lourdes Oñederra

-Bai, bai - **ahoskatu** zuen arrosa kolore bihurtzear zegoen suprefetak, jarraituz-. Itxaro Borda

Izen-abizenak **ahoskatu** zituen: Graciana Miravalles. Aritz Gorrotxategi

"Roman" hitza **ahoskatu** berri zuela iruditu zitzaion Leonorri, "Roman", senarraren izena. Aritz Gorrotxategi

Haiek urrun zeudela ziurtaturik, jaitsi zen zuhaitzetik, hurbildu zen harkaitzera, eta berak ere lapurren buruari entzundako hitzak **ahoskatu** zituen: [...]. Patxi Zubizarreta

-Heriotza zoragarria! - **ahoskatu** zuen-. Mirentxu Larrañaga

-Nor ote da? -galdetu zuen Pilarrek ahotsa goraturik, besteei eta, aldi berean, bere buruari egiten zion galdera **ahoskatuz**. Aitor Arana

Apezak latinez hiruzpalau perpaus **ahoskatu** zituen, denak "pro ella" hitzaz amaitzen zirela. Itxaro Borda

Arao ulertezin bat **ahoskatu** zuen. Patxi Zubizarreta

Garbi dago /denboa/ zela hiztun horren denbora hitzaren barne-aurkezpena, aipatu adibidea **ahoskatu** zuenean. Lourdes Oñederra

Ez dira esaten zailak, baizik-eta ezinak, **ahoskatu** ezinak, impronunciableak, unpronounceableak. Iñaki Segurola

Atelierrera zetorrenean, Jean Marie sindikalista huxtuka errezibitzen zuten: ez zuen hitzik **ahoskatzen** ahal. Itxaro Borda

Izenburua ozenki **ahoskatu** eta berehala, metal hotsa aditu nuen nire bizkarrean, ohearen beste ertzean -gau mahaitik hurbil-, bi ezpaten arteko talka gogorra berpiztua bailitzan. Aritz Gorrotxategi

Emakumeak, berriz, hitzetik hortzera zerabilen "jouissance" hitza, behar bezala **ahoskatzeko** arazo nabarmenak zituen arren. Ramon Saizarbitoria

Hizkera askotan hedatu da tt -> **tx** ahoskatzeko joera, eta baita *yeismoa* deitu ohi dena ere. Koldo Zuazo

Esate baterako, *seme* eta *semea*, *seme* eta *semia* **ahoskatzen** dituenak e / i txandakatze fonologikoa eskaintzen digu, *seme*-ren eta *semi*-ren artean dagoen desberdintasun bakarra ahoskerazkoa baita. Lourdes Oñederra

Azken hitzak **ahoskatzean**, Monduteguyren doinua mehatxuzkoa bihurtu zen. Elena Touyarou

· Ziurrenera, letra-hots nahastea errazago gertatzen da, euskarak bezala, **ahoskatuaren** eta idatziaren arteko aldea erlatiboki txikia duten hizkuntzetan. Lourdes Oñederra

2 (adizlagun eta kidekoen eskuinean)

Grazia egiten die Luluk nola **ahoskatzen** duen Ssshanti hori. Jokin Muñoz

Esaterako, euskaraz ez dira berdin **ahoskatzen** *baba* hitzaren /b/ biak. Lourdes Oñederra

Nahiko ahots zakarra dauka, baina polito **ahoskatzen** du. Anjel Lertxundi

Kaleko hitz bat sartu zaigu liburuan, baina idazleak ez du horren errurik, irakurleak dira errudunak, goi-gizarteko irakurleak bereziki: inoiz ez diezu entzungo errusierazko hitz bat bera ere taxuz **ahoskaturik**. Jose Morales

Beti esaten zioten izena ahoskatzen ikastea exijitu behar ziela ingelesei, beraiek ez baitzuten inolaz ere onartzen beren izenak gaizki **ahoskatzea**. Mikel Hernandez Abaitua

Hagitz jostagarriak iruditu zitzaizkion haren berba bizi eta zabarki **ahoskaturikoak**. Mirentxu Larrañaga

Eta irakurtzen ikasten hasi nintzenean, zazpi urterekin edo, oso harro **ahoskatzen** nuen lehengusuen aurrean, Lehorreko Atearen atzealdean, sei lerrotan idatzirik, agertzen zen izkribu famatua: "Ciudad / de / San Sebastian / Capital / de / Guipuzcoa". Txillardegi

Horrela **ahoskatutako** KONTSONANTEAK kontsonante EIEKTIBOAK dira. Lourdes Oñederra

Gogoan hartzeko sententzia moduan **ahoskatua** zuen Mentxuk azken esaldia, eta hitz zizelkatuen hoztasun bereko isiltasuna jaso zuen solaskide biengandik. Josu Landa

Mutikoak lar astiro **ahoskatu** zuen hurrengo esaldia. Josu Landa

Bere eskola kaierari begira, galderak emeki **ahoskatzen** zituen. Ramuntxo Etxeberri

Goiok ez zuen frantsesa batere ondo **ahoskatzen** . Joseba Sarrionandia

Esan didatenez komeni da zenbakia ahalik bizkorren alemanez argi eta ulerkor **ahoskatzen** ikastea. Urtzi Urrutikoetxea

Nik neuk ere, egia aitortuko badut, hau esan behar dut: bertako baserritarrek bezala, eta osaba Praixkuk berak bezala ere, "très mal" **ahoskatzen** omen nuela Rose izena. Txillardegi

Harry jaitsi zenean, ahots motel bat, hitzak nagi baina alai **ahoskatzen** zituena, iritsi zitzaion belarrira. Iñaki Mendiguren

Silabak nabarmenduz bar-ne-te-gia **ahoskatzen** zuen, eta so-or (moja zuzendariaren izena), begirune bortxatua erabiliz. Joseba Urteaga

Hitzak gutti gora behera **ahoskatzen** dituzte, egiazko bizian hain usu entzuten den moduan. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

a ahoskatzen (4); **ahoskatu ahal** (5); **ahoskatu ahal izan** (4); **ahoskatu behar** (12); **ahoskatu dut** (3); **ahoskatu edo** (3); **ahoskatu ere** (3); **ahoskatu eta** (14); **ahoskatu ez** (3); **ahoskatu ezin** (3); **ahoskatu ezina** (3); **ahoskatu ezinik** (5); **ahoskatu gabe** (4); **ahoskatu nahi** (4); **ahoskatu nuen** (8); **ahoskatu ondoren** (3); **ahoskatu orduko** (6); **ahoskatu zituen** (18); **ahoskatu zuen** (48); **ahoskatu zuenean** (4); **ahoskaturiko hitz** (4); **ahoskatutako hitzak** (3); **ahoskatzeko gauza** (5); **ahoskatzeko joera** (3); **ahoskatzeko modua** (3); **ahoskatzeko orduan** (3); **ahoskatzen ari** (4); **ahoskatzen badu** (3); **ahoskatzen baita** (3); **ahoskatzen baitira** (3); **ahoskatzen da** (16); **ahoskatzen dela** (4); **ahoskatzen den** (14); **ahoskatzen dena** (3); **ahoskatzen denean** (3); **ahoskatzen dira** (6); **ahoskatzen diren** (9); **ahoskatzen direnak** (3); **ahoskatzen direnean** (3); **ahoskatzen dituzte** (3); **ahoskatzen du** (6); **ahoskatzen duen** (4); **ahoskatzen dute** (3); **ahoskatzen duten** (5); **ahoskatzen eta** (3); **ahoskatzen ez** (8); **ahoskatzen hasi** (5); **ahoskatzen omen** (3); **ahoskatzen zen** (3); **ahoskatzen zituen** (10); **ahoskatzen zuela** (6); **ahoskatzen zuen** (17); **ahoskatzen zuten** (4); **bat ahoskatu** (9); **bat ahoskatzen** (8); **berdin ahoskatzen** (6); **bere izena ahoskatzen** (3); **bezala ahoskatu** (3); **bezala ahoskatzen** (10); **da ahoskatzen** (3); **ere ahoskatu** (4); **ere ahoskatzeko** (3); **ez ahoskatzeko** (3); **hitza ahoskatu** (5); **hitza ahoskatzen** (8); **hitzak ahoskatu** (5); **hitzak ahoskatzean** (3); **hitzak ahoskatzeko** (4); **hitzak ahoskatzen** (7); **hitzik ahoskatu** (5); **hitzok ahoskatu** (3); **izena ahoskatu** (9); **izena ahoskatu zuen** (3); **izena ahoskatzen** (8); **izena ahoskatzen zuela** (3); **izenak ahoskatu** (4); **nola ahoskatu** (4); **nola ahoskatzen** (4); **ondo ahoskatzen** (8)

---

ahoskatze **1** *iz* hizkuntza hotsez mintzatuz, ahoaz gauzatzea.

Hizkuntza AHOTSAREN bidez kanporatzeari deitzen zaio **ahoskatze** edo ahoskera. Lourdes Oñederra

Ahots organoak hizkuntzaz kanpokoak dira, Morse alfabetoa transkribitzeko balio duten aparatuak ere alfabeto horretaz kanpokoak diren hein berean; eta **ahoskatzeak** , hau da, hots irudien gauzatzeak, ez dio sistemari berari ezertan eragiten. Isabel Arrigain

Eskema horretan funtsezkoak iruditzen zaizkigun elementuak soilik hartu arren, berehala, hasiera-hasieratik ageriratzen da alde fisikoen (hots uhinen), alde fisiologikoen (**ahoskatze** eta entzutearen), eta psikikoen (hitzezko irudien eta kontzeptuen) arteko bereizketa. Isabel Arrigain

Ahots organoak hizkuntzaz kanpokoak dira, Morse alfabetoa transkribitzeko balio duten aparatuak ere alfabeto horretaz kanpokoak diren hein berean; eta **ahoskatzeak** , hau da, hots irudien gauzatzeak, ez dio sistemari berari ezertan eragiten. Isabel Arrigain

Gero eta nekezago lortzen nuen esaldien **ahoskatzea** . Txillardegi

Eskuinean lehendakariaren abizena etengabe **ahoskatzen** duten emakume batzuk daude, errepikapenak eragin taumaturgikoa duela sinetsiko balute bezala. Iban Zaldua

"Jeggtse edegg bat egin behagg dut", esaten zuen bere **ahoskatze** zezelarekin, erre-merreka, eta lepo luze altuko "jeggtse edegg" haietako asko zituen, bere gamelu-larruzko berokiaren azpian janzten zituenak. Fernando Rey

Ahoskatze hutsa gozagarria zait niri. Patxi Zubizarreta

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ahoskatze -ikastaroak egin balitu bezala. Jon Muñoz

Lortu lanpostu bat, aurreratu dirua eta orduan hoa **ahoskatze** -irakasle on batengana eta eskaiok azentu hori moldatzeko. Fernando Rey

Hemen, antropologia konparatuari dagokion arazo bat dago: aldatzen al da, bada, **ahoskatze** aparatoa arrazarik arraza? Isabel Arrigain

Ez da hala gertatzen, ilusio bat da, zeren silaba eta bere azentua, **ahoskatze** ekintza bakar bat baizik ez baitira. Isabel Arrigain

Ez da garbi ikusten zertarako balioko luketen **ahoskatze** mugimenduek hizkuntza ez balego; baina mugimendu horiek ez dute hizkuntza osatzen, eta hots aztarna oro sortzeko beharrezkoak diren aho aparatuaren mugimendu guztiak ulertu direnean ere, ez da ezertan argitu hizkuntzaren arazoa. Isabel Arrigain

Ezkongai guztiei zergatik ez eskatu, nazio hizkuntzaren **ahoskatze** , irakurtze eta izkribatze probak egitea. Piarres Xarriton

Ahoskatze kontuak agerian uzteko, hitz zerrendak antolatu ohi dira, bi zutabetan, z/s fonemak kontrajartze aldera, edo ts/tz/tx... Iñaki Arranz

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oinarrizko tesia da hizkuntzen hots eredu biziek esplikazioa dutela: giza **ahoskatze** eta OHARMENEAN datzaten indarrek baldintzatzen dituztela, bai banakakoengan bilakatzen diren eran eta baita mendeetan zehar agertzen duten garabidean ere. Lourdes Oñederra

---

ahoskatzeke *adlag* ahoskatu gabe.

Beltzek hitz bukaerako hizki gehienak **ahoskatzeke** utziko dituzte, ohiturei jarraiki euskalkiren batean mintzarazteko tentazioa izanagatik. Xabier Paya

---

ahoskera **1** *iz* ahoskatzeko era. ik **ebakera 2**.

Aukeran utzi zen h-aren **ahoskera** , baina hasperena egin ezean ere, silaba bitan ahoskatzea hobetsi zen: a.(h)u.la (ez au.la). Koldo Zuazo

Hizkuntza AHOTSAREN bidez kanporatzeari deitzen zaio ahoskatze edo **ahoskera** . Lourdes Oñederra

Antonio Zavalak jasotako testuan denak adierazten du barnetasuna, kontatzen ari denarekiko hurbiltasun ezin handiagoa: bai **ahoskerak** -*zitzayon, arek*- eta bai izen bakan eta berezien erabilera ugariak -Anttoni, Galardi, San Juan...-. Bernardo Atxaga

Ahoskera eta ahoskatze esatean, *ahots* hitza zentzurik zabalenean hartzen da. Lourdes Oñederra

Ahoskeragatik baztertzen gaituzte batzuetan, poloniar azentoa daukagulako. Berria - Mundua

Erdalduntzearen aurka, **ahoskeran** nahiz prosodian. Berria - Kultura

Transkripzio-sistemarik osoenak ere ezin du etengabea den **ahoskeraren** aldagarritasuna jaso. Lourdes Oñederra

Ingelesek, esaterako, **ahoskerarekin** dituzte arazo gehien. Berria - Gaiak

Zentzu zabalagoa hartzen du *articulatory effort* (**'ahoskera** ahalegina') edo *base of articulation* (**'ahoskeraren** oina') bezalako erabileretan. Lourdes Oñederra

Euskarari begira izan dezakegun uste okerra da **ahoskerazko** gertakari oro hizkera maila herrikoiari dagokiola. Lourdes Oñederra

Azken batean, ikurrak **ahoskera** islatzeko lanabesa dira, ikerlariak ahal eta nahi duena grafikoki jasotzeko erabiltzen duena. Lourdes Oñederra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hitz egiten zuen heinean, **ahoskera** ona zuela ohartu nintzen. **Ahoskera** perfekturik gabe ere ulermenak "funtzionatu" egiten duela. Irene Aldasoro

Ahoskera egokia ekoizteko, gainera, ahots aparatuaren mugimendu-aginduak ere berriro programatu beharko ditu. Lourdes Oñederra

-Aizak, hi -azaldu diozu hitzez hitz, poliki, **ahoskera** garbian-, [...]. Rafa Egiguren

Inolako problemarik gabe ipini dit zigilu berria **ahoskera** leuneko polizia batek. Jon Arretxe

Ahoskera samurra eta, aldi berean, triste batez, gazteak erantzun zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Argiro esan zen arauak "euskara batuko **ahoskera** zaindurako" zirela; ez euskalkietarako edo lagunarteko jardunerako, esate baterako. Koldo Zuazo

Idatzizko batasunaren oinarriak finkatuta ikusi orduko, **ahoskera** batuaren inguruko kezka nagusitu zen Txillardegirengan. Berria - Kultura

Kaperakoak latinaren **ahoskera** klasikoa erabili zuten. Berria - Kultura

Belarri fina baitzuen, azkar jarri zen **ahoskerarik** aldrebesenak ere ulertzera, eta, azkenean, jende guztiarekin aise mintzatzeko gauza zen. Juan Kruz Igerabide

Isiltasuna eten zuen gero, posturaren zailtasunak behartutako **ahoskera** arnasestutu batez: [...]. Anjel Lertxundi

-Zu... -hiraren, edo gorrotoaren tonua duen **ahoskera** saminduaz. Iban Zaldua

Begirunezko **ahoskeraz** esan zuen: [...]. Monika Etxebarria

-Ez arduratu -kontsolatu zuen burlazko **ahoskeraz** kakanarruak-. Jon Arretxe

Keinu zalantzatsua egin du sorbaldaz, ziurgabetasuna adieraziz, eta etsipenezko **ahoskeraz** erantzun du: [...]. Jon Arretxe

Ardaoa eskatu zuen duda-mudazko **ahoskeraz**. Josu Landa

Balizko **ahoskera** horren egokitasun edo desegokitasuna epaitu gabe hemen, aitortu behar da aurreikuspena nahiko zuzena izan daitekeela. Lourdes Oñederra

Claudio Rodríguez, gaztelaniar poeta handiak, hautu bera egiten zuela aitortu eta antologia honetan azaltzen diren zenbait poema, Zamorako bere frantses **ahoskera** berezian, errezitatu zidanez geroztik, lotsa galdu nuen. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan)

Erregelak ez dira fonetikoki berezko, ikasiak baizik: ez dagozkio hiztunaren **ahoskera** gaitasunari. Lourdes Oñederra

-Ma chèrie -esan dio alabari frantsesaren **ahoskera** lege guztiei muzin eginez-: Siestara noa. Eider Rodriguez

Esaterako, goragoko adibidean, *t d* baino hobeto entzuten da, nahiz eta **ahoskera** -ahalegina erraztu den. Lourdes Oñederra

Azken batean, **ahoskera** -gertakizunen zio edo justifikazioa alderdi fonetikoan kokatzean edo, gutxienez, horrekin lotzean datza naturaltasuna. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahoskera ahalegina (5); **ahoskera eta** (7); **ahoskeran gertatzen** (3); **ahoskeraren arteko** (3); **ahoskeraren eta** (3); **bigarren hizkuntzaren ahoskera** (5); **eta ahoskera** (13); **eta ahoskeraren** (5); **euskarazko ahoskeran** (3); **haren ahoskera** (3); **hizkuntzaren ahoskera** (7); **hiztunaren ahoskera** (3)

---

ahoskorda *iz* ahots korda.

Bere egiaren ezpataren zorrotzak **ahoskordak** moztu bailizkizu, ez zitzaizun eztarritik arnasaren hotsa bera ere ateratzen Genoako hoteleko gelaren goiz urratu berrian. Lourdes Oñederra

Ahoskordak tinko elkartu eta glotisa itxi daiteke ahots-bidean beste hersketa bat egiten den bitartean. Lourdes Oñederra

Hasperena bokal artean ahoskatzen denean, haatik, **ahoskordak** ez dira elkarrengandik urrun egoten, erabat itsatsita baizik. Lourdes Oñederra

Herskaria (/p/) AHOSKABEA denez, ezpainetako hersketak irauten duen bitartean, **ahoskordek** ez dute dar-dar egiten. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahoskorden dardara (11); **ahoskorden dardararen** (3); **da ahoskorden** (3); **du ahoskorden** (3)

---

ahoskune *iz* ahotsa gauzatzen den gunea.

Hizketa hotsen ekoizpenean biriketatik kanporantz datorren aireari bidea gehien estutzen zaion gunea da **ahoskunea**. Lourdes Oñederra

Ahoskune horretako TRABARIEN artean, igurzkariak bakarrik daude. Lourdes Oñederra

Asan behar da, dena dela, t afrikatuaren **ahoskunea** ez dagoela zehazki ahosabaian, sabaiaren aurrealdea eta hortz hobien atzealdeko eremuan baizik. Berria - Euskal Herria

Ahots bidearen beste muturrean ere, eztarrian behera alegia, sortzen dira **ahoskunetzat** jotzen diren ezaugarri artikulatorioak: hots GLOTALAK dira ahoskorden artean aire etena gertatzen bada beren ekoizpenean eta FARINGALAK, glotisetik ahora bitarteko hodian aireak igurtzi egiten badu. Lourdes Oñederra

Palatalizazio adierazgarrian, aldiz, esanahiak aldarazten du **ahoskunea**. Lourdes Oñederra

Esan daiteke KONTSONANTEAK direla **ahoskunea** duten bakarrak. Lourdes Oñederra

AHOSKUNEA mihiaren aurrealdearen eta goiko hortzen artean duten HOTSEN ezaugarria da horzkaritasuna. Bokalek ez dutela benetako **ahoskunerik**, ahots bide irekia, estutasunik gabea baita bokalen bereizgarri. Lourdes Oñederra

Izan ere, ezaugarri horixe da **AHOSKUNE** bereko diren TXISTUKARI mota bien arteko bereizgarri funtsezkoena: [...]. Maila horiek bereiztea inportantea izan daiteke analisia ongi bideratzeko, goragoko **ahoskune** asimilazioaz ari ginela ikusi bezala. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahoskunea mihiaren (3)

---

ahoskuntza *iz* ahoskatze egintza.

Azterketa honen asmoa ez da osoa izatea, oraindik ere bereiz baikenitzake sentipen akustiko garbia, sentipen hori irudi akustiko sorrarekin identifikatzea, **ahoskuntzaren** gihar irudia eta abar. Isabel Arrigain

Hots irudi terminoa, agian, estu xamarra gertatuko da, zeren hitz baten hotsen irudikapenaren ondoan, haien artikulazioarena -alegia, **ahoskuntzako** ekintzaren gihar irudia- baitago. Isabel Arrigain

Baina **ahoskuntza** mailako aurkakotasun horietarako ere, gainerako gramatikazko legeei buruz esan duguna balio digu: sinkronikoak dira. Isabel Arrigain

---

ahosoinu *(orobat **aho soinu**) iz* ahoaz putz eginez edo xurgatuz jotzen den musika tresna txiki zuloduna, zuloetan metalezko mihi batzuk dituena. ik **ahoko soinu**; **harmonika**.

Disko horretan agerian uzten du seikoteak (ahotsa, baxua, bateria, organoa eta **ahosoinua** eta bi gitarra) non jartzen duen arreta: [...]. Berria - Kultura

Muñecok (Amparanoiaren perkusio jotzailea), Marcos Collek (**ahosoinua**), Oye Larsonek (tronboia) eta Iñaki Arakistainek (saxo tenorea) hartu dute parte diskoan. Berria - Kultura

Haren ahotsaren auhenean zelai berdeen itxaropena dago, lore-bainuaren mineria; haren gitarran errepide amaigabeen nostalgia; haren **ahosoinuak** gerra baino maitasuna egin nahiago zuten tribu haien kronikak aletzen ditu. Pako Aristi

Zolan kristal hautsiak, orraziak, botoiak, oihal puska eta guzti errotik atereak, uniforme baten mahuka bat osoa, galtzontzilo odoldu batzuk, aspaldi odolez txipatua egondako musuzapi bat, xakepieza batzuk barreiaturik, partxiseko taula bat, ispilu borobil bat, **ahosoinu** bat, gutun batzuk elurrak estaliak, benda luze bat eta pilota marradun bat. Fernando Rey

Musika sortzen zuen edozein tresna gorrotatzen zuen, pianoa izan, **aho-soinua** izan edo danborra. Fernando Rey

Nik aspaldi utzi nion Bob Dylan jarraitzeari, baina azkenaldian asko entzun dut haren disko bat, *Infidels,* eta burura etorri zitzaidan **aho-soinua** erabiltzeko aukera. Berria - Kultura

Bluesaren hastapenak eta bluesaren heldutasuna ordezkatzen dituzten hiriekin lotzen da Charlie Musselwhite (AEB, 1944) **aho soinu** jotzailearen ibilbidea. Berria -

Kultura

---

ahostun *izond* hizkuntza hotsez mintzatuz, ahots hariak dardaratuz eratzen dena. ant**ahoskabe**.

Ingelesez *voice* hitza erabiltzen da ahoskorden dardararen emaitza adierazteko eta, horregatik, *voiced* (**'ahostun'**) dira ahoskorden dardaraz egiten diren hotsak. Lourdes Oñederra

Ahoskabetzat jo baitu **ahostun** zena. Lourdes Oñederra

Hemen, nahita eginiko sinplifikazioa dela medio, foneman bere irekiera maila hartuko dugu kontuan, artikulazio lekua, eta artikulazioaren izaera berezia (**ahostun** ala ahoskabe den, dardarkari edo albokaria eta abar) kontuan hartu gabe. Isabel Arrigain

Herskari ahoskabeak dira euskarazko hitz-azkenetan gerta daitezkeenak (bost, zait, guk), inoiz ez dira *d* edo *g* **ahostunak** aurkituko. Lourdes Oñederra

Ingelesez voice hitza erabiltzen da ahoskorden dardararen emaitza adierazteko eta, horregatik, voiced (**'ahostun'**) dira ahoskorden dardaraz egiten diren hotsak. Lourdes Oñederra

Indoeuropar **ahostun** hasperendu bat. Isabel Arrigain

Berez, herskari **ahostun** sudurkarizatuak dira; *amba* ahoskatzen denean, altxatu egiten da aho gingila, m-tik b-ra igarotzean sudurzuloak isteko. Isabel Arrigain

Mereziko luke, halaber, horie 'amarillo' eta horixe 'eso mismo' **ahostun**-ahoskabe aurkakotasunaz bereizten duten bizkaieradunen kasua ere ikuspuntu horretatik aztertzea. Lourdes Oñederra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **herskari ahostun** (3); **herskari ahostunen** (3); **trabari ahostunak** (5); **txistukari ahostunak** (7)

---

ahostundu, ahostun(du), ahostuntzen da/du *ad* ahostun bihurtu.

Haatik, bilakabide sintagmatiko bati esker, kontsonante ozenen aurreko txistukariak **ahostundu** egiten dira. Lourdes Oñederra

Bidenabar bederen esan behar da txistukariaren ondorengo trabaria ez ahoskabetzeak txistukaria **ahostuntzea** ekar dezakeela. Lourdes Oñederra

Herskari ahostun eta ahoskabeak ingurune horretan ere bereizi behar direlako, ezin diogu amore eman ingurune ahostunetan trabariak **ahostuntzeko** bilakabide ingurunedunari. Lourdes Oñederra

---

ahostuntasun *iz* ahostuna denaren nolakotasuna.

Txistukarien **ahostuntasuna** alofonikoa da euskaraz. Lourdes Oñederra

Areago, noraino iristen da **ahostuntasuna**? zeren s bezalako frikari batzuek silaba osa baitezakete, pst-en adibidez. Isabel Arrigain

Esku artean dugun arazoari dagokiola, /sg/ trabari bilkura ahoskatzeko zailtasuna trabari multzoko ahoskabetasun-**ahostuntasun** bilkura horretan legoke, eskatuko lukeen GLOTISAREN egoera aldaketa lasterragatik. Lourdes Oñederra

---

ahostuntze *iz* ahostun bihurtzea.

Lehenak herskariaren **ahostuntzea** (t -> d) dakar aurreko sudurkariaren ahotsa kutsatu zaiolarik asimilazioz, alegia, lenitioz. Lourdes Oñederra

Ahostuntze hori ALOFONIKOA da egungo euskaran eta, horregatik, hautemanezina gertatzen zaigu. Lourdes Oñederra

---

ahostxo *iz adkor* ahoa.

Eta emakume batek **ahostxo** goxo batez adierazi zuen: [...]. Josu Zabaleta

---

ahotada *iz* ahokada.

Ciro ke-**ahotada** bat jaurti, burutik kapela erantzi, eskuak poltsikoetan hondoratu eta elizara sartu zen. Koldo Biguri

---

ahotan 1 *adlag (*-en *deklinabide atzizkiaren eskuinean)* ahoan.

Ostikada eman nion zoruari, libururen batetik ateratako esaldi hura eta kalesako aitaren **ahotan** entzuna bat eta bera zirela konturatu izanaren amorrazioz.*Egirik bada, egi da naski, / urka-bearraren itza,* jarri zuen, berriz, Orixek urkamendian hiltzera kondenatutako Imozko apezgaiaren **ahotan**, eta nola batean hala bestean, heriotzaren eta hilketaren atarian bertan agertzen zaigu egiaren mutur beltza. Anjel Lertxundi

Beste esamolde eder bat ere, aditua nago askotan, goizuetarren **ahotan**, baten batek zerbait isilean pasa edo erdizka esaten duenean, baliatzen dena. Patziku Perurena

Oraindik euskaldunen **ahotan** bizirik dagoen "eperra harrapatu" esanerak berriz, mozkortu esan nahi du. Patziku Perurena

Itoizen kanta famatu batek, hala jotzen du errepika Carlos Perezen **ahotan**: *txantxangorria naiz, txantxangorria naiz...* Patziku Perurena

2 *ahotan eduki*

Une batez, zinta-karrera ahaztea ere pentsatu nuen, arinkeria bat zirudielako hirurok **ahotan edukitako** gaien ondoan. Bernardo Atxaga

3 *ahotan erabili*

Orain denbora guztia hauteskundeak **ahotan erabiltzeak** eztabaidatu nahi ez izatea erakusten duela uste du. Berria - Euskal Herria

Berekoia, diruzalea, zuria, ustela, oiloa... ez ziren edertzekoak Tomas Atondoren zer-nolakoak agertzeko **ahotan erabiltzen** zituenak. Aingeru Epaltza

Berebat esan dezakegu **ahotan darabilgun** auziaz ere: honako, hizkuntza bat gutxitxo da, baina bi gehitxo. Iñaki Segurola

Egiptorako ihesa margolanean, astoaren atzetik doazen bi pertsonaien mugimenduak **ahotan darabilten** elkarrizketa ikaratia iradoki nahi du. Anjel Lertxundi

Kokoteraino nagon hik eta hire ahizpak azken aldian **ahotan darabiltzazuen** hitzez! Xabier Paya

Luzaro baino lehen jende guztiak **ahotan zerabilen** pertsonaia bitxi hura, bere egoitzan bakarrik bizi zena eta ehizarako eta arrantzarako baizik handik ateratzen ez zena. Josu Zabaleta

Gero, jakina, bulgarizaziotik kanpora ere, behin-behineko hipotesiak aise bihurtzen dira behin-betiko jakite, arian-arian eta **ahotan** maiz **erabiliaren** bortxaz Iñaki Segurola

4 *ahotan hartu*

Hizkuntza guztietan Deabruari hainbat eta hainbat deikera ematen zaizkio, alusiozkoak eta eufemistikoak, hala posible baita hura adieraztea izena **ahotan hartu** gabe. Juan Garzia

Errege merovingio zaharrek jainkoa **ahotan hartuz** zuritzen zuten beren indar ahalguztiduna. Patziku Perurena

Eta ama dut **ahotan hartzen** eta ez aita, zeren ume-kontu hauek amen gauzak izan ohi baitira haste-hastetik aitenak baino askozaz gehiago. Iñaki Segurola

Asko hitz egin eta idatzi da Sarrionandiaren lanaz, eta halako errespetua ere ematen du idazle sonatu baten eleberria **ahotan hartzeak**. Berria - Kultura

Legegintza Gorputza **ahotan hartu** eta izugarriak esan zituzten haren kontra. Karlos Zabala

PSE-EEko hainbat buruzagiren **adierazpenak ere ahotan** hartu zituen Barrenak: "80etako berberak, kare bizia erabiltzen zuten berberak, ausartzen dira Anoetako proposamenari nota jartzera. Berria - Euskal Herria

5 *ahotan ibili*

Gaur denen **ahotan ibili** da hartzaren barteko erasoa. Patxi Zubizarreta

Aldaketen erritmoa ez ezik, aldaketak egiteko moduaren egokitasuna ere **ahotan dabilen** eztabaida da. Pako Aristi

Atlheticeko presidentetzarako hautagaiek bere izena **ahotan ibili** badute ere, "hauteskunde prozesutik kanpo" dagoela adierazi zuen atzo Julen Guerrerok. Berria - Kirola

Aurreko egunetan mundu guziaren **ahotan ibili** i baita pilota partida ikaragarri baten kontua. Patziku Perurena

Lizeora zu ikustera joaten hasi zenean askoren **ahotan ibili** zen erregistratu nahi zintuela, baina zure aitaordeak ordurako erregistraturik zintuela. Bego Montorio

Orain ez didak erranen lankide onak baizik ez zinetela, denen **ahotan ibili** baitzineten praktiketan egon zeneko udan. Aingeru Epaltza

Arlten izena idazle klasikoen **ahotan ibili** izan da beti, eta harekiko interesa banuen. Berria - Kultura

Kontua da labaindar guztien **ahotan zebilela** auskalo nork asmatutako ziri bertsoa: [...]. Anjel Lertxundi

Bazakinagu ez hauela horrek berekin eramango, baina gizon eta emakumeen **ahotan ibiliko** gaitun; edozein eskale gu baino gehiago dela esango diten, gu arkua tenkatzeko gai izan ez eta hark erraz egiten baldin badu. Juan Kruz Igerabide

5 ***ahotan izan***[1] da *ad*

Denen **ahotan izan** ziren, bereziki, Washingtonek beren nekazariei ematen dien diru laguntzak. Berria - Mundua

Lortu zuten efektua begi bistakoa zen: guztion **ahotan izateaz** gain, jende askoren konplizitatea ere bereganatu zuten. Txema Ramirez de la Piscina

Itzuli nintzenean oraino jendearen **ahotan zela** uste dut: baina bertze zeregin bat banuen, eta horrelako aferetan nekez entzuten dut egunekoa edo bezperakoa ez den berririk. Jon Muñoz

6 ***ahotan izan***[2] du *ad*

"Giza eskubideak beti **ahotan dituztenez**, Ibarretxe jaunak badauka aukera hona etortzeko, Azkarate nola dagoen ikusteko, zer gertatzen ari den ezagutzeko eta Azkarateren askatasuna eskatzeko», esan zuen. Berria - Euskal Herria

Gau hura bera baliatu nuen horretarako; eta jokoa bukatu ondoren, neska ttipia hegi batean bakartu, eta Dancenyren hizpidera ekarri nuen, nahiz beti **ahotan duen**. Jon Muñoz

Holako haurfesta eta eskeko erronda modu desberdinak **ahotan dituela**, hala baitio J. M. Iribarrenek. Patziku Perurena

Eseri zineten, pozik, ingurumariari erreparatzeko astirik gabe oraindik, bukatu berri zenuten bilerako zertzeladak gogoan edo bidean hizpidea sortutako kontuak **ahotan zenituztela**. Joxean Agirre

Azken hamabostaldiko gertakizun ilunak eta egunerokotasunak sortzen eta eskaintzen dituen gorabeherak **ahotan zituztela** utzi zuten bi emakumeek kalea, maldan gora baserrietako bidea hartuz. Joxemari Urteaga

Erdarazko "Dice (n) que... " kutsua du, baina, betiere murmuraziozko, gaizki esandako, haserrezko, gezurrezko edo gehiegikeriazko esaldietan erabiltzen da, eta bi hiztunek hirugarren baten esanak **ahotan dituztenean**. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adierazpenak ere ahotan (3); **ahotan dabil** (9); **ahotan dabilen** (9); **ahotan dabiltza** (4); **ahotan dago** (14); **ahotan dagoen** (4); **ahotan darabilten** (3); **ahotan daude** (7); **ahotan dauden** (3); **ahotan egon** (8); **ahotan egon zen** (4); **ahotan entzun** (4); **ahotan entzunda** (3); **ahotan entzuten** (5); **ahotan ere** (4); **ahotan eta** (8); **ahotan ez** (3); **ahotan hartu** (26); **ahotan hartu eta** (7); **ahotan hartu gabe** (3); **ahotan hartuta** (9); **ahotan hartzea** (6); **ahotan hartzeko** (4); **ahotan hartzen** (10); **ahotan hitz** (5); **ahotan ibili** (8); **ahotan izan** (33); **ahotan izan dute** (4); **ahotan izan zen** (4); **ahotan izan zituen** (3); **ahotan izan zuen** (8); **ahotan izan zuten** (5); **ahotan jarri** (4); **ahotan jarritako** (3); **ahotan jartzen** (3); **ahotan zebilen** (10); **ahotan zebiltzan** (3); **ahotan zegoen** (4); **askoren ahotan** (19); **aukera ahotan** (4); **azkarate eledunaren ahotan** (5); **baten ahotan** (17); **bera ahotan** (3); **beti ahotan** (4); **bozeramailearen ahotan** (3); **bozeramaileen ahotan** (3); **denen ahotan** (44); **denen ahotan dabil** (3); **denen ahotan dabilen** (3); **denen ahotan daude** (4); **denen ahotan ibili** (3); **denen ahotan izan** (3); **denon ahotan** (13); **ditu ahotan** (3); **du ahotan** (7); **eledunaren ahotan** (5); **ere ahotan** (13); **ere ahotan izan** (8); **eta ahotan** (3); **euskaldunen ahotan** (5); **gehienen ahotan** (5); **guztiaren ahotan** (4); **guztien ahotan** (34); **guztien ahotan dago** (4); **guztien ahotan zebilen** (6); **guztion ahotan** (10); **guztion ahotan dago** (3); **haren ahotan** (10); **hartu zituen ahotan** (3); **hartu zuen ahotan** (11); **herritarren ahotan** (3); **hura ahotan** (3); **inoren ahotan** (5); **izan zituen ahotan** (3); **izan zuen ahotan** (4); **izan zuten ahotan** (4); **izena ahotan** (3); **jendearen ahotan** (16); **mundu guztiaren ahotan** (3); **nire ahotan** (3); **otegiren ahotan** (3); **politikarien ahotan** (3); **zale guztien ahotan** (5); **zituen ahotan** (8); **zituzten ahotan** (4); **zuen ahotan** (17); **zuten ahotan** (6)

---

ahotara *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* **1** *iz* ahoan aldi bakoitzean sartzen den janari zatia edo janari kopurua. ik **ahamen**; **otamen**; **mokadu**.

Haitada guziak edo gehienak bederen egin ondoan nahi duenarentzat izanen da **ahotara** baten jateko mentura. ETC-prentsa

Hitza aditzean batzuk malgortzen dira: menskeria horiek Neandertalen garaira itzularaziko gaituztela diote, garapena dogma sakratua dela edo garapenak baizik ez dezakeela gehiengoaren ontasun-maila berma, pastetxa handiago, **ahotarak** halaber. ETC-prentsa

Beste hegaztiek edateko kurka guztietan, **ahotara** bakoitzean, burua goiti altxatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 irud/hed

Hunek **ahotara** bat ederra ere iretsi du gero 16tik 23ra hurbilduz eta berdintzera ere zoan, 26-27 noiz eta urruñarra eskapatu baitzaio 36taraino lerroan, hor ere lau sake sartuz. ETC-prentsa

---

ahotaraka *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *adlag* aho beteka.

Nola izan daiteke kaxkar "mundua dantzan jarriko nuke Jainkoa banintza" diona? Lau haizetara zabalduak diren haren kantuak gureganatu ditugu Aldudeko elizan, **ahotaraka**. ETC-prentsa

---

ahots *(ETCn **53.084** agerraldi)* **1** *iz* zintzurreko mintz tolesturak dardaratzen direnean sortzen den hotsa. ik**boz**.

Orduan ez nuen jakin neure tristura eta etsipenaren beharrak eraginda ote zen, edo benetan gozoa duelako **ahotsa** nire emazteak, baina emakume hari arreta handiagoarekin behatu nion handik aurrera. Hasier Etxeberria

Gero **ahotsa** leunduz gaineratu zuen -: Zein zaila den herri honetan alkate kargua! Felipe Juaristi

Ahotsik gabe dago. Jokin Muñoz

Eta **ahots** batek erantzuten dit, ironiatsu, baina **ahots** batek azken finean. Eskarne Mujika

-Egia esan, bai - **ahotsean** nabari zitzaion ez zela gezurretan ari-. Aitor Arana

Arruti doktorearen **ahotsa** ezagutu ez banu telefonoan, broma zela pentsatuko nuen... Koldo Izagirre

-Bakarrik milesker? -Mozorroaren beheko **ahotsak** erasiaka ari zela zirudien-. Elena Touyarou

- Berdin dit... egidazu berba Coruñako itsasoaz... zeure **ahotsa** entzun nahi dut, besterik ez. Paddy Rekalde

Ezin dut burutu txakurrekin - Dembaren **ahotsak** dar-dar egiten zuen, amorruz. Anton Garikano

Pareta biluzi itzaltsuetan, oihartzun pittin bat egiten zuen Xerealen **ahotsak** deklamatzean. Iñaki Iñurrieta

Ahotsa gutxika makaldu eta begirada beldurtu zaio. Xabier Paya

Ahotsa falta dute, jakina, eta asko falta izatea da hori. Joxerra Garzia

2 *irud/hed*

Ahots sozialak dio 'Satorrak baino lurperago' liburua oso interesgarria dela, eta horregatik interesgarria iruditzen zait bere egilea ezagutzea. Pako Aristi

Baina, Xabier Rubert de Ventós irakasle miretsiak Bellaterrako campusaz zioen bezala, botereak ghettoan nahi ditu beti **ahots** kritikoak, eta horregatik paratzen ditu unibertsitate campusak hiri-guneetatik urruti, hango zaunka hotsak ez diezaion loa galeraz. Joxerra Garzia

Ni baitan, hala ere, Martin Mihurubikoari Belagile irizten segitu nuen, eta Maisu ere bai gero, eta egundaino, norberaren barruko **ahots** isilak horretarako, behintzat, tartea uzten baitigu; hots, nornahiri zeingura moldez iriztekoa. Edorta Jimenez

Baina nik hemen ezarri hitzek beste bat edo bestearen isiltasunari **ahots** bat ematen badiote, zertako ez segitu? Piarres Aintziart

Dokumentua beti tratatu izan da, egun, isiltasunera kondenatua izan den **ahots** baten hizkuntza bezala, honen arrasto hauskor baina, beharbada, ulergarriaren modura. Xabier Arregi

Laugarren, animaliek, euren arteko sentimenduak adierazteko **ahotsa**, nolabait, erabil badezakete ere, ez daukate pasioak astintzeko behar den hitzaren artea, ona berez dena baino hobeto aurkezteko balio duena, eta gaitza are okerrago. Esteban Antxustegi

Horrelakoetan, Sofik belarria lur xuxurlariaren gainean jartzen zuen mendiaren **ahotsa** hobeki aditzeko. Fernando Rey

Brumaireren 18ko horren ostean, herriaren **ahotsak** aginpide eratuko egoera desberdinetan jarri dituen norbanakoek lan horretarako batzorde bereizia osatu dute. Andres Urrutia

Stockholmeko Konferentziaren ostean ere alerta **ahotsek** berean jarraitzen zuten, baina nazioarteko komunitateak ez zien aparteko arretarik eskaini ingurumenarekin eta garapenarekin lotutako mundu mailako arazoei, laurogeiko hamarkadara iritsi arte. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez alferrik, bertan modulatzen da boterearen **ahotsa**. Iñigo Aranbarri

Ahots propioa dutenak, eta **ahots** estandarrarekin konformatzen direnak. Lander Garro

3 (musika kontuez mintzatuz)

Ahots berdinetako abesbatzek, berriz, Xabier Sarasolaren Mendian gora euskal abestia eta folklorea atalean, eta Jesus Egigurenenen Ave Maria polifonian izango dituzte derrigorrezko piezak. Berria - Kultura

Txapli **ahots** ekipoa furgonetan sartzen ari zen. Unai Iturriaga

-Ni Migel naiz - erantzun zuen saguak bere tiple **ahotsez** -. Patxi Ezkiaga

Gospela koru askorekin erlazionatzen badugu ere, kasu honetan musika instrumentuak nagusitzen dira, **ahots** bakarra baitago. Berria - Kultura

4 (izenondoekin)

Ahots marmartiaz xuxurlatu zidan: "Zergatik ez zenion esan sendagileari bart arratsean bera bezalakoa zinela? ". Joseba Urteaga

Nik uste nuen abante eginen zuela Florenek haizearen barrura, orduantxe entzunen genuela bere **ahots** mehe barnagarria, baina burumakur zegoen, jotako toilaren antzera gelditu ginen denok, eta aldamenean nituenak beha hasi ote zitzaizkidan, nor dugu hau, zergatik ez du barre egiten... Koldo Izagirre

[...] bere modura bukatu zuen sermoia, eta hain **ahots** trumoitsua ateratzen zen gizon puska haren ahotik, eta hain gauza potoloak esan zituen, ezen dardarka jarri baitzuen elizako sabaia. Koldo Biguri

Denak oroitu ditut: deitu ninduen **ahots** mehea, eraman ninduen indar ezkutua, topatu nituen oztopoak, erori nintzen aldiak, eta ahal bezala zuritu ditut fede galdua, errealitatearen ikuspegi laikoa, itxaropen etsia, errebeldia egoskorra, eta izerdi-iturriaren aldaketa, goldetik lumara. Xabier Mendiguren Elizegi

-Nahiago nuke hori balitz... - esan nion, **ahots** kezkatua jarrita. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta, bostehun librako lehergailuen **ahots** luze eta patxadatsuarekin eta su-eragileen mintzo suminduarekin batera, korridore extu eta ilun hartan pilatzen ginen jendetzari zerion surmur etengabea ere gogoratzen zait. Alberto Ladron Arana

Hitz horiek idatzi bezain aise, ordea, horra non entzun dudan **ahots** zakar baten ziria auskalerriko bazterren batetik kantuan: Anjel Lertxundi

Azkenean garrasi batek, ikara eta atsekebezkoa irudi, urratu zituen nire ametsak; eta gero, isilune baten ondoren, **ahots** asaldatuen hotsa entzun zen, eta, hotsarekin nahastuta, pena edo oinazezko intziri isilak. Koro Navarro

Ahots sendoa dauka Prusiarrak, mahaiaren punta batetik bestera entzuteko modukoa. Harkaitz Cano

"Nolanahi ere - esaten zuen marabutak, **ahots** sarkor batez -, gure Edgar kuttunak modu ezin hobea aurkitu du nahaste handi honetan ordena jartzeko". Joxan Elosegi

Antzokiko sarreran letra handiz idatzitako oharrari ez zion erreparatu, baina opera hasi baino bost minutu lehenago eskatu zien **ahots** gozo batek bozgorailutik, arren, itzaltzeko telefonoak. Imanol Zurutuza

Hura dena buruan zebilkidala, **ahots** sakon eta beroa entzun nuen, nire bizkarraldetik zetorrena: Aitor Arana

Bakarrik nago **ahots** alai eta zentzudun hauen erdian. Monika Etxebarria

Borroka betean ari direla, zeharo debekatuta dago baso sakratura sartzea... - esan zuen druidak **ahots** txistukariaz, eta ondoren erantsi zuen, dardarka -: Gaitz erdi! Joanes Urkixo

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

- Bai... - esaten zuen Pelik, batere segurtasunik besterenganatzen ez zuen **ahots**-tonu batez. Jon Alonso

Osabaren **ahots**-doinua gora zihoan; bera sekula ezagutu ez nion haserre bizian sartzen zelarik. Txillardegi

Zintzurretik jalgi **ahots**-auhen sakonak bazekarren zuriak jin baino lehenagoko karibu ihiztarien aroa. Aurelia Arkotxa

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Noizean behin - Industria Iraultzaren hasieran, esaterako, edo energia nuklearra iritsi zenean -, beroago egin izan dute oihu **ahots** horiek: Aski! Kito! Geldi hor! Itzul gaitezen lehengora! Aurkitu beste sistema bat, giza espeziearentzat hain arriskugarri ez dena! Juan Garzia

Eta, bizi-bizirik zegoela frogatzeko, beste edozein gizabanako bezala heriotzatik urrun zegoela eta pittin bat ere ez zela hil erakutsi nahirik, honela esan zuen logelako isiltasun eta bakardadean, ozenki eta baxu-**ahots** etenaz: Jose Morales

Proposamen leun ahalik eta gozatuena zen: paseoko mutilen txilio gordin txorrotxen ostean, badakizu, neska **ahotsak** badu ba, belarri-ixkinan halako doinuxka kilimatiagoa... Pello Zabala

Neskato bat nintzela, gurasoen etxean, nire senideek edo nik mahai-zapiaren gainera baso bat irauli edo labana bat lurrera erortzen uzten bagenuen, aitaren trumoi-**ahotsa** aditzen zen: "Zikinkeriarik ez, mesedez! ". Fernando Rey

-Bada inor hemen? - egongelatik heldu zen gizon-**ahots** ozen bat aditu zen. Fernando Rey

7 ***ahots beheran/beheraz***

-SS-en komisariara joateko dei bat iritsi da aitarentzat - esan zuen **ahots beheran** -. Josu Zabaleta

Hau da froga gisa ekarri ahal izan dudan guztia" esan zuen edo esan zezakeen, halaxe adierazi nion epaileari, **ahots beheraz** hitz egiten baitzuen, ahots leun edo hezeegiz, aurrean zuena laztanduz edo isiltasunezko estalki batean bilduz bezala. Joxean Agirre

Idazkariak **ahots beheran** jarraitu zuen: Josu Zabaleta

Horrela, belar guztia bertan utzi beharra izan zuten, berandu baitzen berriro kargatzeko, eta etxe aldera itzuli ziren: iritsi ziren, nekazaria italieraz biraoka zela, baina hotz eta **ahots beheran**, ez gure artean bezala. Josu Zabaleta

8 ***ahots bide*** *(orobat* ***ahotsbide*** *g.er.)* ahotsak ezkarritik ahora egiren duen bidea.

Lehenengotan, burua sukarrez galdan zeukaten eta begi biak argi lausoan gorri-gorri; zintzur beztuei odola zerien, ultzeraz trabaturiko **ahots-bidea** ixten zitzaien eta mihia, gogoaren mezularia, odoletan zen, gaitzak ahuldua, mugitzeko sor, ukitzeko latz. Xabier Amuriza

Mihia izaten da, gehienetan airearen bidea itxi edo estutzen duena, geldirik dagoen **ahots bideko** zatiren baterantz hurbilduz. Lourdes Oñederra

Hizketa-hotsen formanteak **AHOTS-BIDEAREN** ERRESONANTZI guneen araberako maiztasunetan kokatzen dira. Lourdes Oñederra

Ahots bidearen beste muturrean ere, eztarrian behera alegia, sortzen dira ahoskunetzat jotzen diren ezaugarri artikulatorioak: hots GLOTALAK dira ahoskorden artean aire etena gertatzen bada beren ekoizpenean eta FARINGALAK, glotisetik ahora bitarteko hodian aireak igurtzi egiten badu. Lourdes Oñederra

Hots afrikatuak **ahots-bidearen** hersketa batekin hasten dira, HERSKARIAK bezala. Lourdes Oñederra

Horrek esan nahi du entzulearen belarriak jasotzen duen hotsa traba batek sortua dela: hiztunak biriketatik kanporatu duen aireari, **AHOTS-bidean**, ebakera-organoez egindako trabak. Lourdes Oñederra

9 *ahots elektronikozko fenomeno* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Ahots Elektronikozko Fenomenoak edo AEF (gaztelaniaz, "psicofonía" eta ingelesez, "EVP" edo "Electronic Voice Phenomenon") tresna elektronikoez jasotako eta jatorri ezezaguna duten ahots-mezuak dira. ETC-entziklopedia

10 *ahots goraz* ik **boz goraz**.

Ulemen burua hurreratu eta **ahots goraz** irakurri zuen txatala. erromesek **ahots goraz** segitzen zuten otoitzean. Karlos Zabala

Ahots goraz eta espantuka. Felipe Juaristi

11 *ahots hari* ia entzuten ez den ahotsa.

Ni, egia esan, ahalegindu nintzen hienaren alde egiten, hura ez zela mozorro bat esaten, baina **ahots-hari** ahul eta beldurti bat besterik ez zen irten ene eztarritik. Karlos Linazasoro

Ahots-hari bat atera zaizu, ozta-ozta, eta erregu egin diozu horrela: [...]. Rafa Egiguren

-Xakean, anderea -ihardetsi nion **ahots hari** batez-. Alberto Ladron Arana

Alde batera eta bestera mugitu du burua neskak, isilik, eta ondoren ahoz errepikatu du, esandakoa ukatzen duen **ahots-hari** mehe eta hauskor batez: "Ez". Xabier Mendiguren Elizegi

-Agur, ama! -esan nion **ahots hari** mehe etenkor batez. Txillardegi

· Beaverbrook andrea, fatalista, ia hasi zen negarrez, eta halako **ahots haritxo** batez esaten zuen: [...]. Josu Zabaleta

12 *ahots joskera* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Lehenengo entzunalditik oso agerian geratzen da bi kantarien arteko elkarhartzean dagoela diskoaren zutabeetako bat, eta bai folketik (Lur bakartian, Ezten atzokoa, Inork agintzen ez didalako, Armiarma eta izarra) zein rocketik (Bazabiltza, Bizi baikara, Lur bakartian, Ikusten duzu ilunabarrean) edaten duten **ahots joskera** eta moldaketek janzten dutela kantu hauen biluztasuna. ETC-prentsa

13 *ahots korda* zintzurreko mintz tolestura, dardaratzean ahotsa sortzen duena.

Baina poesia adierazteko, hitzak behar dira, eta euskarri bat hitz horiek idazteko, edo **ahots kordak** hitz horiek esateko. Luis Elberdin

"Ia **ahots-korda** bat moztu behar izan dizugu", bota dit, "baina azkenean zatitxo bat baino ez dizugu kendu". Hasier Etxeberria

Horra zer erran zuen, hila ematen nuela, alegia, **ahots-korda** kiskalietako gizonak, ibilgailura itzuli eta atea itxi aitzin. Aingeru Epaltza

Ez da suminduraz beteta egurrezko mahaia kolpatu eta mahai gaineko botila eta tabernaren erroak nahiz tabernariaren **ahots kordak** tenk jartzen dituen esku zarta nabarmenegi horren kontua bakarrik. Harkaitz Cano

Bada adindu bat **ahots-kordak** urratuta dituena. Berria - Euskal Herria

Baina nire **ahots-kordek** ez zidaten jaramonik egin, eta "Sí, soy yo" bat eratu zuten. Iban Zaldua

Europako Batasunaren gomendioan agertzen da **ahots kordetako** noduluak lanak eragindako gaixotasun bezala hartu behar direla. Berria - Euskal Herria

Ez da zulorik egiten, ez da zundarik jartzen, eta minbizi kasu jakin batzuetan **ahots-kordetako** minbizia kasu egunean bertan ematen zaio alta gaixoari. Berria - Gaiak

Sokak presio handia egiten du **ahots-kordetan**, oinak lurrean jartzeko aukerarik ez dagoenean batez ere. Unai Elorriaga

14 *ahots musika*

Uztailaren 16an beste gau berezi bat izango da: **ahots-musikari** eskainitakoa. Berria - Kultura

Fraseoak oso argi, arnasketa (nahiz sokazko instrumentu bati buruz ari garen, bere eredua **ahots musika** da, eta arnasa hartu beharra dauka) egoki eta tenpo malgua, ahots eta testuaren araberakoa. Berria - Kultura

Lanak liburuki bi izango ditu; musika instrumentalari buruzkoa lehena, eta **ahots musikari** buruzkoa bigarrena. Berria - Harian

15 *ahots musikal*

Bere **ahots musikalak** eta umorerako gaitasunak entretenimenduko telebista saioen lehen lerroan iraunarazi zuten bere bizitzako azken urteetan. Berria - Kultura

16 *ahots-postontzi*

Telefono mugikorraren zenbakia utzi zion **ahots-postontzian**. Migel Angel Mintegi

17 *ahots tipologia* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Baritonoa. **Ahots tipologia**. ETC-entziklopedia

Baxua. **Ahots tipologia**. ETC-entziklopedia

18 *ahotsa ozendu*

-Peeves da, intxixu bat -esan zien Percyk lehenengo urtekoei ahopetik, eta gero, **ahotsa ozenduz**, esan zuen-: Peeves, ager zaitez. Iñaki Mendiguren

Joan zen Basarrik besoak zabalduz eta **ahotsa ozenduz** "bagera edo ez gera" botatzen zuen garaia. Andoni Egaña

-Jendeak Ramadana betetzen duen bitartean ni vodka edanez mozkortzen naiz -esan dit, **ahotsa ozentzeke**, ibilaldian elkartu zaigunean. Jon Arretxe

Halako batean, euskarri hobearen bila, hanken gainean tentetu zen; **ahotsa ozentzeko**, nonbait. Jon Muñoz

19 *ahotsaren sintesi* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Azken honen barruan bi arlo bereizi behar dira, **ahotsaren sintesia**, hots, ordenagailuak hitz egitea, eta ordenagailuak zuk esandakoa transkribatzea edota ulertzea. ETC-prentsa

"Horiekin lan ildo batzuk ezarri genituen itzulpen automatikoaren, ahotsaren ezagutzaren, **ahotsaren sintesiaren** eta hizkuntzaren prozesamenduaren esparruetan tresna batzuk sortze aldera". ETC-prentsa

20 *off ahots* *(ETCn **134** agerraldi, horietatik **68** azken sei urteetan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **off-eko ahots** agertzen da)*

70 minutu irauten du, eta **off ahots** batek Eugenio D'Ors idazle katalanak (1881-1954) Oceanografia del Tedio liburuan idatzitakoa irakurtzen du. Berria - Kultura

21 *off-eko ahots* *(ETCn **240** agerraldi; orobat **off ahots** ETCn **97** agerraldi eta **offeko ahots** ETCn **67** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **off-eko ahots** agertzen da) iz* ikusten ez den norbaiten ahotsa.

Ez ohiko egoera horretan zuzendariak berak landu duen gizonezko baten **off**-eko **ahotsak** proba ezberdinak eginarazten dizkie. Berria - Kultura

Atal bakoitza **off**-eko **ahots** batek aurkezten du. Berria - Kultura

Otso talde bat basoan ilunpean bilduta agertzen da, eta **off**-eko **ahotsak** zera dio: [...]. Berria - Mundua

Gure Jainkoak ar eta eme egin gintuen, esango zuen **off**-eko **ahotsak**, eta pantailak orduan haur biluzi biren argazkiak erakutsiko zituen. Xabier Mendiguren Elizegi

Igerilekura jauzi egiten duten andra-gizonak; gazteleraz ari da **off**-eko **ahotsa**. Jokin Urain

22 *offeko ahots* *(ETCn **67** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **off-eko ahots** agertzen da)*

Gero, noski, altzari denda ospetsu hartan altzariak oso prezio onean daudela iragartzen zuen **offeko ahots** batek. Joxerra Garzia

-Misterio hori eta beste batzuk -esan zuen Leirek orduan, txantxaz, telebistako telesail txarretako **offeko ahotsa** imitatuz-, aitona zoroaren landetxera iristean argituko dira! Aitor Arana

Dantzariari mikrofonoarekin aritzeko aukera oso zabaldua dago orain, baina ez genuen hori nahi izan, eta, arriskutsua zela jakin arren, **offeko ahotsa** sartzea erabaki genuen, dantzarien ahotsa grabatuta. Berria - Kultura

Offeko ahotsak: "Elkartasuna adierazi zien, besteak beste, Paul Eluard poetak". Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

ahots ahul (7); **ahots ahulez** (9); **ahots apal** (32); **ahots apal apalez** (9); **ahots apal eta** (9); **ahots apalean** (8); **ahots apalez** (87); **ahots asko** (8); **ahots bakar** (11); **ahots bakarra** (15); **ahots bat** (164); **ahots bat entzun** (51); **ahots bat entzuten** (7); **ahots batek** (149); **ahots batek esan** (10); **ahots baten** (13); **ahots batez** (21); **ahots batzuk** (14); **ahots batzuk entzun** (7); **ahots beheran** (14); **ahots betean** (7); **ahots bidean** (7); **ahots dardaratiz** (11); **ahots doinu** (19); **ahots ederra** (20); **ahots erlatsez** (7); **ahots eta** (38); **ahots ezagun** (16); **ahots ezezagun** (8); **ahots ezti** (17); **ahots eztia** (7); **ahots gogorrez** (7); **ahots gora** (11); **ahots goran** (13); **ahots goraz** (27); **ahots gozo** (10); **ahots gozoa** (9); **ahots handiz** (18); **ahots haren** (11); **ahots hari** (23); **ahots hari batez** (7); **ahots hark** (12); **ahots hori** (24); **ahots horiek** (7); **ahots horrek**

(9); **ahots hotz** (10); **ahots hura** (37); **ahots ilunez** (7); **ahots itoaz** (7); **ahots kritikoak** (8); **ahots lakar** (12); **ahots lakarra** (8); **ahots lakarrez** (11); **ahots lasai** (9); **ahots lasaiaz** (10); **ahots latzez** (25); **ahots leun** (12); **ahots leun eta** (7); **ahots lodi** (18); **ahots lodia** (9); **ahots mehe** (10); **ahots meheaz** (8); **ahots ona** (7); **ahots oso** (9); **ahots ozen** (27); **ahots ozen eta** (9); **ahots ozena** (9); **ahots ozenez** (47); **ahots propioa** (24); **ahots sakon** (18); **ahots sakon eta** (9); **ahots sakonez** (8); **ahots sendo** (15); **ahots sendo eta** (7); **ahots sendoz** (10); **ahots taldeak** (9); **ahots tonu** (11); **ahots tonua** (13); **ahots txiki** (9); **ahots zakar** (16); **ahots zakarra** (10); **ahots zakarrez** (23); **ahots zoli** (7); **ahots zoliz** (9); **ahots zorrotz** (7); **ahots zorrotzez** (10); **aitaren ahots** (8); **amak ahots** (7); **baina ahots** (22); **barruko ahots** (9); **barruko ahots batek** (7); **bat batean ahots** (10); **batean ahots** (11); **baten ahots** (20); **bere ahots** (120); **beren ahots** (9); **beste ahots** (38); **beste ahots bat** (16); **beste ahots batek** (9); **bezalako ahots** (8); **bi ahots** (12); **da ahots** (13); **den ahots** (10); **dio ahots** (13); **du ahots** (32); **duen ahots** (11); **edo ahots** (8); **egin zuen ahots** (15); **emakume ahots** (24); **emakumezko ahots** (10); **ere ahots** (14); **esan zidan ahots** (7); **esan zion ahots** (15); **esan zuen ahots** (81); **esaten du ahots** (7); **eta ahots** (205); **eta ahots bat** (7); **eta ahots batek** (9); **eta ahots ozenez** (10); **eta bere ahots** (9); **gabeko ahots** (10); **galdetu zuen ahots** (9); **gero eta ahots** (8); **gizon ahots** (9); **gizonaren ahots** (7); **gizonezko ahots** (8); **haien ahots** (9); **hain ahots** (7); **hainbat ahots** (11); **halako ahots** (8); **haren ahots** (27); **hermionek ahots** (8); **kea ahots** (7); **nion ahots** (10); **nire ahots** (11); **nuen ahots** (10); **orduan ahots** (9); **oso ahots** (22); **zen ahots** (28); **zetorren ahots** (11); **zidan ahots** (20); **zien ahots** (14); **zion ahots** (41); **ziren ahots** (7); **zirudien ahots** (7); **zituen ahots** (11); **zitzaion ahots** (9); **zuen ahots** (177); **zuen ahots apalez** (11); **zuen ahots batek** (22); **zuen ahots latzez** (8); **zuen bere ahots** (12); **zuten ahots** (9)

ahotsa aditu (15); **ahotsa aditzen** (9); **ahotsa altxatu** (10); **ahotsa apaldu** (30); **ahotsa apaldu zuen** (15); **ahotsa apalduz** (19); **ahotsa baino** (8); **ahotsa behar** (8); **ahotsa da** (18); **ahotsa dar** (8); **ahotsa dar dar** (8); **ahotsa dardaran** (7); **ahotsa du** (9); **ahotsa eman** (20); **ahotsa eman nahi** (8); **ahotsa entzun** (148); **ahotsa entzun dut** (7); **ahotsa entzun nuen** (36); **ahotsa entzun zen** (16); **ahotsa entzun zuen** (23); **ahotsa entzunarazi** (10); **ahotsa entzunarazteko** (9); **ahotsa entzungo** (10); **ahotsa entzutean** (9); **ahotsa entzuteko** (14); **ahotsa entzuten** (48); **ahotsa entzuten zuen** (10); **ahotsa ere** (21); **ahotsa eta** (71); **ahotsa eta gitarra** (9); **ahotsa ez** (28); **ahotsa ez zen** (7); **ahotsa ezagutu** (22); **ahotsa firfiran** (8); **ahotsa goratu** (19); **ahotsa goratu zuen** (7); **ahotsa goratuz** (17); **ahotsa goratzen** (7); **ahotsa hain** (8); **ahotsa izan** (31); **ahotsa izatea** (10); **ahotsa izateko** (9); **ahotsa oso** (8); **ahotsa zen** (30); **ahotsak ekimena** (8); **ahotsak entzun** (32); **ahotsak entzuten** (28); **ahotsak ere** (14); **ahotsak eta** (30); **ahotsak ez** (14); **ahotsak gero** (7); **ahotsak gero eta** (7); **ahotsaren eta** (7); **ahotsaren tonua** (10); **ahotsean eta** (7); **ahotsik entzun** (7); **ahotsik ez** (12); **ahotsik gabe** (35); **aitaren ahotsa** (20); **aitaren trumoi ahotsa** (12); **aldeko ahotsak** (10); **amaren ahotsa** (19); **baina ahotsa** (18); **bat ahotsean** (8); **batean ahotsa** (7); **baten ahotsa** (43); **baten ahotsak** (7); **bere ahotsa** (101); **bere ahotsa entzun** (8); **bere ahotsak** (17); **bere ahotsaren** (19); **bere ahotsari** (10); **bere ahotsean** (9); **beren ahotsa** (9); **beren ahotsak** (7); **berezko ahotsa** (12); **dioten ahotsak** (7); **diren ahotsak** (7); **du ahotsa** (10); **ere ahotsa** (10); **esan zuen ahotsak** (7); **eta ahotsa** (99); **eta ahotsak** (38); **eta ahotsaren** (20); **eta ahotsen** (7); **eta ahotsez** (7); **eta ahotsik** (10); **eta bere ahotsa** (17); **eta haren ahotsa** (17); **euren ahotsa** (7); **europan ahotsa** (7); **euskal herriaren ahotsa** (7); **gure ahotsa** (18); **haien ahotsa** (9); **haien ahotsak** (10); **haren ahotsa** (100); **haren ahotsa entzun** (8); **haren ahotsak** (31); **haren ahotsaren** (16); **haren ahotsean** (19); **herriaren ahotsa** (16); **herritarren ahotsa** (8); **jainkoaren ahotsa** (11); **jaunaren ahotsa** (17); **kontrako ahotsak** (8); **nagusiaren ahotsa** (8); **neskaren ahotsa** (7); **nire ahotsa** (25); **trumoi ahotsa** (14); **ume ahotsa** (8); **zen ahotsa** (16); **zen haren ahotsa** (8); **zion ahotsak** (7); **zitzaion ahotsa** (15); **zuen ahotsa** (44); **zuen ahotsak** (24); **zure ahotsa** (29)

---

ahotsbide ik **ahots 1**.

---

ahotu *izond* ahotan erabilia.

Menta handiko hitza dugu garaiotan, usuki **ahotua**. Iñigo Aranbarri

Ez du Mao Zedongek gure artean "bat bitan banatzen da" baino esaldi **ahotuagorik** izango. Iñigo Aranbarri

---

ahotxo *iz adkor* aho txikia.

Oraindik gordetzen zuten noizean behin batak besteari sagar-zatitxo bat, gozoki bat edo intxaur txiki bat emateko ohitura, eta, halakoetan -erabateko maitasunaren adierazgarri-, edonor hunkitzeko moduko ahots samurrez esaten zuten: "Zabaldu **ahotxo** hori, laztana, puskatxo hau sartuko dizut eta". Jose Morales

Esan gabe doa **ahotxo** hori zabaltzen zela hain eskaintza samurraren aurrean, oso modu lirainean zabaldu ere. Jose Morales

Gero Peterrek azken titarea eman zion **ahotxo** goxoan, eta aurpegia eskuekin estali zuen, Maimie urruntzen ez ikusteko. Julen Gabiria

---

ahotz[1] **1** *iz* uzta larrainean jo ondoren gelditzen den lastoa; gari alea biltzen duen azal mehea.

Oilo batzuk **ahotzean** mokoka. Koldo Izagirre

Ahotz idor goxoa genuen azpian, sutondotik urrun metatua. Aingeru Epaltza

Ganbarako bazterrean, maindire bat **ahotz**, maiatzaren azkenera arte, gorde zak! Pello Zabala

2 irud/hed

Belarriak zorroztu eta bihia eta **ahotza** bereizi, horra nire lana. Aingeru Epaltza

Kazetaritzaren oparia omen da **ahotzetik** alea bereizteko ahalmena, baina gaitasun hori egunkariko berrietan ahitzen zait niri. Aingeru Epaltza

---

ahotz[2] ik **arotz**.

---

ahotzar *iz irud* ahoa, eskuarki handia.

Letxua hosto osoak, tomate puskak, dena desagertzen hasi da **ahotzar** horren barruan, oliba bat eztarrian trabatu zaion arte. Jokin Muñoz

Nire sabeletik **ahotzar** bat jaiotzen zen, letagin zorrotzekin, eta osorik biltzen ninduen, odola eskatuz. Juan Kruz Igerabide

Leihopeko mustroaren **ahotzarra** hortzak erakusten hasi da, sua eta tximistak darizkiola harkaitz tzarren antzeko hortzen artetik. Anjel Lertxundi

Pentsatzen hasten zen guztietan, bere **ahotzarra** zabaldurik, mihi punta kanporatu, eta suge baten miztoari bezalaxe eragin zion. Patxi Zubizarreta

Orain zer kalte egingo liguke, izan ere, Nemeako lehoi haren **ahotzarrak** edo Arkadiako basurde ile-zorrotzak? Xabier Amuriza

Nire **ahotzarra** madarikatu nuen. Aingeru Epaltza

Letxua hosto osoak, tomate puskak, dena desagertzen hasi da **ahotzar** horren barruan, oliba bat eztarrian trabatu zaion arte. Jokin Muñoz

Han, nire izate osoaren aurrean, hormatzar ikaragarria altxatzen zen zerurantz, basoko zuhaitzetatik gora, eta goitik, **ahotzar** batetik, ur jasa izugarriak egiten zuen jauzi, putzu berde zabal batera. Jon Maia

---

ahouhal ik **aho 14**.

---

ahoxuri ik **aho 14**.

---

ahoz *adlag* ahotsarekin adieraziz.

Monsieur-en, erregearen anaia bakarraren, agente batek, Bouillon-go kontea (Sedan-go printze soberanoa zena) eta Effiat Cinq-Mars ezkutaria prestatzen ari ziren konspirazioaren berri eman zion, **ahoz**, estatu kontseilariari. Juan Martin Elexpuru

Hizkuntza, definizioz, dinamikoa da, eta dinamika horrek eman dituen fruituen multzoa da literatur tradizioa: **ahoz** nahiz idatziz, belaunaldiz belaunaldi transmititzen den denboraren altzoan babestutako kultur ondarea. Anjel Lertxundi

Euskara **ahoz** eta idatziz menperatzea galdegina da. Herria

Ahoz kantatua idatziz ematean datza afera. Berria - Kultura

Ahoz izan zen bakarrik, baina hortik hasi behar da. Berria - Euskal Herria

Hasieran arreba txikiei kontatzen zizkien ipuinak **ahoz**, aitak harrapatu zuen arte. Unai Elorriaga

Garai batean, sektore-korruetan antolaturik, erosketa eta salmenta aginduak elkarri **ahoz** esaten zizkioten (baita oihuka ere sarritan). Iñaki Heras

-Lekukoek **ahoz** emandako informazioa duk. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskalkia erabiltzea ez da inondik inora **ahoz** esaten dena zuzen-zuzenean transkribitzea. Koldo Zuazo

Idatziz zein **ahoz**, hitza hizkiek osatzen dute -grafiek edo fonemek, berdin dio orain-, nahi eta nahi ez, esanahiak gorabehera. Iñaki Arranz

Bai, egitura dramatiko soilak dira, garai bateko mitoekin harremanatutako erakus-istorioak agian, memoria kolektiboan gordeak eta **ahoz** zabalduak, sorketa literario etengabe berriei bidea egiten dietenak. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahoz aho dabil (5); **ahoz aho dabilen** (5); **ahoz aho ibili** (4); **ahoz aho ikusgarria** (3); **ahoz aho zabaldu** (5); **ahoz aho zebilen** (4); **ahoz aho zebiltzan** (3); **ahoz ahoko** (11); **ahoz aurrez** (3); **ahoz behera etzan** (4); **ahoz edo idatziz** (3); **ahoz eman** (4); **ahoz ematea** (3); **ahoz ere** (4); **ahoz esan** (4); **ahoz esaten** (3); **ahoz eta idatziz** (8); **ahoz ez** (3); **ahoz goiti etzan** (3); **ahoz gora etzan** (8); **ahoz gora etzanda** (20); **ahoz gora jarri** (3); **ahoz gora zegoen** (3); **ahoz hitz emana** (3); **ahoz iragarria** (3); **ahoz nahiz idatziz** (6); **ahoz zein idatziz** (6); **bai ahoz** (3); **baina ahoz** (3); **bihotzez eta ahoz** (3); **da ahoz** (4); **du ahoz** (3); **erori zen ahoz** (3); **ez ahoz** (4); **gero ahoz** (3); **hitzez eta ahoz** (3); **hori ahoz** (6); **izena ahoz aho** (5); **jeremias profetaren ahoz** (3); **lurrean ahoz gora** (3); **nire ahoz** (3); **ohean ahoz gora** (4); **ura ahoz aho** (5); **zeure ahoz** (3); **zuen ahoz** (5)

---

ahozabal **1** *izond* aho zabala duena; ahohandia.

Ezkerrekoentzat mistiko atzerakoia eta antisemita arrazista zen; eskuinaren ustetan, **ahozabal** haren baldankeriek zalantzan jartzen zuten herriaren aurrean erregetzak izan behar zukeen irudia: Inork ez du inoiz hainbeste inozokeria labirintikorik bota gure gizarteari buruz, eta, hori gutxi balitz, haren eraginez sortu zaizkigu mundura hainbeste eta hainbeste **ahozabal** berritsu, Frantzia aldeko bizkarroi horiek guztiak, esaterako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hark gure arrazako **ahozabal** lotsagabeen aldean goi mailako pertsona ospetsutzat zuen bere burua. Pello Lizarralde

Nire anaiari buruan sartu zitzaion gu inork ezin gintuela sekula onartu **ahozabal** gaizki heziz eta sobera eskalez beteta zegoen familia batetik heldu ginelako. Pello Lizarralde

Euskaldunak ez omen gaituk tripero astazakil batzuk besterik, eta gurekin ez dagoela kontatzerik, eta... zer gehiago ez zituen esan ordea, maketo **ahozabal** urde horrek! Patziku Perurena

2 (adizlagun gisa)

Auskalo noiztik **ahozabal** egongo zen Garaipen Arku baten azpitik pasatu ziren turistak aurrenik, eta baita segituan jarraitu ere, lehen bezain txunditurik, Josetxo Azkona

---

ahozapi *(ETCn **62** agerraldi; orobat **aho-zapi**)* **1** *iz* ezpain zapia.

Gero **ahozapia** platerera botatzen du. Koro Navarro

Paperezko **ahozapia** eskutik kendu, eta harizkoa eskuan jarri. Anjel Lertxundi

Taxiko errezibo gorde du gero, eta hoteleko txartela ere bai; gorde egin ditu katedraleko sarrera-txartela, karta-sorgin batek artistaren etorkizunari buruzkoekin bete duen papertxoa, taberna dotore batean atera dioten freskagarriaren etiketa, jatetxeko paperezko **ahozapia**, azukrearen poltsatxoa, bazkariaren faktura. Berria - Kultura

Lurrera jausitako **aho-zapi** bat jaso zuen. Ramon Saizarbitoria

2 ***paperezko ahozapi***

Taberna dotore batean atera dioten freskagarriaren etiketa, jatetxeko **paperezko ahozapia**, azukrearen poltsatxoa, bazkariaren faktura, Erromako aitasantuak aldare santero bati bizkarra erakusten dion postal bitxia. Berria - Kultura

Paperezko ahozapia eskutik kendu, eta harizkoa eskuan jarri. Anjel Lertxundi

---

ahozapitxo *adkor* ahozapi txikia.

Nereak **ahozapitxo** bat hartu du, bolatxoa egin, eta ezpainetako maionesa garbitu du. Lander Garro

---

ahozeru ik **aho 13**.

---

ahozgora ik **aho 21**.

---

ahozgoratu ik **aho 21**.

---

ahozikin *izond* besteen ustez zikinak diren hitzak esaten dituen pertsona.

Merkatuko arrunkerietan hezia, bazekien buruz kai aurreko jende **ahozikinaren** katixima; ukabila aldakan jarri eta ama Méhudin haserrearen plantak hartzen zituen. Karlos Zabala

Amak, ordea, kasu egin nahi zion eta lasaitzea nahi zuen, eta nahi zuen gure aitak era adeitsuagoan hitz egiten ikastea eta ez beti erantzutea Jainkoaren gaineko birao haiekin eta **ahozikinek** egozten dituzten beste batzuekin. Pello Lizarralde

Bestalde, ez da bera herren edo paralitiko **ahozikin** horietarik. Pablo Sastre

---

ahozkatu ik **ahoskatu**.

---

ahozkera ik **ahoskera**.

---

ahozko **1** *izlag* ahoaren bidezkoa; ahoz esana.

Autorea bere *Lehen Bizitza*-z eta berak **ahozko** edo idatzizko iturrietatik zuzenean lorturiko informazioaz ere baliatu baitzen. Askoren artean

Eskualde jakin bateko **ahozko** jardunean, bertako euskalkia erabiltzea izan daiteke zentzuzkoena eta onuragarriena. Koldo Zuazo

Adimen-otoitza **ahozko** otoitz guztien gainetik dago. *Ei* (*omen*, bizkaieraz) partikularen **ahozko** aldaera. Joan Mari Lekuona

Dela **ahozko** lapsusa (lapsus linguae), dela idatzizkoa (lapsus calami), hutsa ez da berariaz egiten eta, hortaz, nekez esan genezake egilea jolasean ari denik. Iñaki Arranz

Ahozko onespena eman zion Inozentzio III.a Aita santu handiak. Askoren artean

Ahozko tradizioan nahiz testu idatzietan, batez ere ipuinetan. Bernardo Atxaga

Historian zehar mendeak eta mendeak pasatu dira literatura idatzirik gabe, **ahozko** transmisioan oinarrituz. Ana Urkiza

Euskara ez da haiengana iristen, eta euskal hiztunek ez dute ulertzen giza aldaketa latzen ondorioz **ahozko** kultura desagertzera doala, eta idatzia, printzipioz egunkariena, gailenduko dela. Pako Aristi

Euskara bere eguneroko **ahozko** zereginetan baizik erabiltzen ez duenak ere, nekez onartuko du ortografia arauak eta hizkera jasoaren baldintza bereziak ikasi eta erabili beharra. Koldo Zuazo

Ahozko katearen zatiketa silabatan. Isabel Arrigain

Ahozko inprobisazio kantatuaren protagonista eta ikerlariak bilduko dituen topaguneak sortzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertsolarien poetikaren mugak bertsolaritzaren **ahozko** bat-batekotasunaren ondorioz datozenak dira oinarrian. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eleberriak eta autobiografiak, esaterako, idatziak dira, beharbada **ahozko** estrategien arabera idatziak izan badaitezke ere. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hiztegian, sintaxian eta hizketaren erritmoak hautatzerakoan egilearen **ahozko** hizkerarekiko joera islatzen duen prosa narratiboa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Badakit nire **ahozko** testigantza hau idatzi, digitalizatu eta inprimatu egingo dutela. Karlos Zabala

Bertsolaritza **ahozko** erretorika-genero epidiktikoa, kantatua eta inprobisatua dela. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Galdu dugu **ahozko** gizarte hura, iritsi zaigu komunikabide idatziena. Pako Aristi

"Euskal herri-literatura" esaten dugunean "euskal **ahozko** literatura" etortzen zaigu burura. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ahozko euskal literaturaren sailkapena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Garbi dago, hala ere, sailkapen horretan sartzen dituen genero guztiak ez direla berdin **ahozko**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ahozko hedabideetan "euskalki jasoa" edo "eskualdeko batua" erabiltzea da zentzuzkoa. Koldo Zuazo

Masturbazioa, **ahozko** sexua eta homosexualitatea Jainkoaren zigorra jasotzetik zientziaren zigorra jasotzera igaro ziren. Luis Elberdin

Dosi txikiko **ahozko** antikontzeptibo konbinatuak (AOC) oso egokiak dira harreman sexual iraunkorrak dituzten nerabe eta gazteentzat. Luis Elberdin

Irizpide hauei buruz ari naizelarik, **ahozko**-idatzizko borrokaren lekuko, Txirritaren bertso-hasiera hau izan daiteke: [...]. Andoni Egaña

2 *ahozko hizkuntza*

Horrela, posible da hizkuntza bietan hezitzea umeak, eta ez, normalean gertatzen den legez, **ahozko hizkuntza** keinu bidezkoari gaineztea. Berria - Euskal Herria

Bestetzuk, berriz, **ahozko hizkuntzari** dagozkio, eta hortik hizkuntza idatzira ere pasatzen dira. Iñaki Arranz

Errusia edo Austria-Hungariako Inperioei begiratzea aski zen, printzipioz posibilitatea ikusteko -orduan!-, hizkuntza bat **ahozko hizkuntza** gisa ederki bizi zedin, eta ez izan literarioa. Joxe Azurmendi

Ohar bat dena den: erabiltzen duzun **ahozko hizkuntza** hori... Ramuntxo Etxeberri

Antzerkia izanik, Pinterren testuak **ahozko hizkuntzatik** hurbilago daude literaturan normala den hizkuntza mailatik baino. Berria - Kultura

3 *ahozko literatura*

Ahozko literaturaren alorrean ere, doinuak, errimak eta neurriak egiten dute bertsoa bertso. Iñaki Arranz

Lekukotasun horien arabera -Garibaik jasotako **ahozko literatura** aberatsa da froga ona-, badirudi lehenagotik zetorrela euskararen aldeko jarduna. Koldo Zuazo

Ahozko literatura jendearengana hurbiltzea du xede ikuskizunak. Berria - Kultura

Osaba Manuelen ildotik, lan handia egin zuen **ahozko literatura** aztertzen. Berria - Harian

Garbi dago euskalkiak leku zabala izan behar duela **ahozko literaturan**. Koldo Zuazo

Hau ez zen apaizgaia Jon Baltza bezala, baina bai kristautasuna oso barruan zeramana, familiatik gainera, hiru osaba behintzat jesuita baitzituen, tartean Antonio Zavala gure **ahozko literaturaren** biltzailerik handiena. Xabier Mendiguren Elizegi

Casablancan egon nintzenean ere, tradizio handiko **ahozko literaturarekin** topo egin nuen, Hondurasen bezala, baina Haur eta Gazte Literatura idatziari dagokionean, garatze bidean dagoen sistema dela iruditu zitzaidan. Ana Urkiza

Ahozko literatura idatzian irakurritako gordinkeriarik handiena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Xmaa el Fna Marrakexeko enparantza ospetsuko kontalaria ematen du Bikilak, **ahozko literatura** bildu digula liburura. Markos Zapiain

4 *ahozko tradizio*

Ahozko tradizioaren bidez, Francoren diktadura aztertzen hasi dira. Berria - Harian

Ahozko tradizioak indar handia du. Berria - Kultura

Perugiako Anonimoa ez da konpilazioa, obra originala baizik; eta hau eratzeko, egilea **ahozko tradizioaz** baliatu zen, batez ere Frantziskoren lagun izan ziren Egidio eta Bernardoren testigantzaz. Askoren artean

Edo bestela, hurbil-hurbilekoak dira indigenen eta euskaldunen **ahozko tradizioak**. Bernardo Atxaga

Gurean aranismoari egotzi izan zaio **ahozko tradizioarekiko** arbuioa, baina jarrera hori askoz ere lehenagokoa da. Anjel Lertxundi

Hortaz, hizkuntzak, idazkeraren menpe ez dagoen, eta beste modu batez finkatu den **ahozko tradizio** bat du; baina forma idatziaren prestijioak tradizio hori ikustea oztopatzen digu. Isabel Arrigain

Horregatik, jakitun talmudikoek ez idaztea erabaki zuten, eta, hartara, doktrina filosofikoak euren tasun intelektual eta moralengatik aukeraturiko ikasleei bakarrik helarazi behar zitzaizkien **Ahozko Tradizioaren** atal sekretu bihurtu zituzten. Xabier Kintana

Ekialde Hurbileko **ahozko tradizioak** bildu ditu bere liburuetan, herriaren esperantzak eta miseriak. Fernando Rey

5 *ahozko usadio* *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Ahozko usadioa belaunaldiz belaunaldi ahoz igarotzen diren kultura adierazpenak dira, arbasoen jakintza eta bizipenak belaunaldi berriei pasatzeko helburuz. ETC-entziklopedia

Patri Urkizu garaian garaiko **ahozko usadioez** mintzatu zen. ETC-prentsa

Gehientsuok dakigu Sopelana **ahozko usadioan** antzinatik Sopela dela; besterik da, alabaina, **ahozko usadioko** forma bakarrik hartzea jatortzat. ETC-prentsa

Ahozko usadioa ez da eleberrien abiaburu ezta jomuga ere. ETC-literatura, saiakera

Printzipioz, Euzkadiren arrazoibideak badu logikarik, hizkuntza ofizialak normalean idatzizko agiriei baitagozkie, eta alde horretatik oso deigarria da estatuordezkari bat herri txiki bateko **ahozko usadio** bat arautu nahian sartzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aitaren aldeko **ahozko usadiotik** ez ezik, amaren aldekotik ere ikasia naiz, etxean bertan, garai hartako Farolatarrak medio, Frantzesaren gurutzeko krimenarekin lotzen gaituen beste pasadizoa. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahozko auzi (5); **ahozko bista** (5); **ahozko epaiketan** (5); **ahozko epaiketarako** (5); **ahozko epaiketaren** (4); **ahozko epaiketari** (3); **ahozko erretorika** (3); **ahozko eta bat** (3); **ahozko eta idatzizko** (18); **ahozko euskal literatura** (5); **ahozko euskara** (6); **ahozko froga** (3); **ahozko harmonia** (3); **ahozko harmoniak** (6); **ahozko harremana** (3); **ahozko hizkera** (4); **ahozko hizkuntza** (7); **ahozko izaera** (3); **ahozko jardun** (4); **ahozko jardunean** (8); **ahozko jardunetan** (4); **ahozko katea** (7); **ahozko katean** (7); **ahozko katearen** (6); **ahozko kultura** (6); **ahozko laztanak** (4); **ahozko literatura** (12); **ahozko literaturan** (3); **ahozko literaturaren** (7); **ahozko literaturari** (3); **ahozko nahiz idatzizko** (4); **ahozko ondarea** (4); **ahozko ondarearen** (3); **ahozko poesia** (4); **ahozko proba** (3); **ahozko saioa** (9); **ahozko saioan** (9); **ahozko saioaren** (3); **ahozko saioari** (3); **ahozko tradizio** (4); **ahozko tradizioa** (7); **ahozko tradizioak** (4); **ahozko tradizioaren** (3); **ahozko transmisioa** (4); **ahozko trebeziak** (5); **batez ere ahozko** (3); **buruzko ahozko** (4); **den ahozko** (3); **dituen ahozko** (3); **du ahozko** (7); **dugu ahozko** (3); **dute ahozko** (5); **edo ahozko** (3); **ez ahozko** (3); **ez da ahozko** (3); **gure ahozko** (3); **kontrako ahozko** (3); **zuen ahozko** (5)

ahozkoa da (3); **ahozkoa ez** (3); **ahozkoa izan** (3); **idatzia eta ahozkoa** (3)

idatzizkoaren eta ahozkoaren (3)

ahozkotasun 1 *iz* ahozkoa denaren nolakotasuna.

Ahozkotasuna eta inprobisazioa datozen belaunaldietara luzatzeari dagokionez ere desberdin gabiltza. Andoni Egaña

Ahozkotasuna betidanik, Homerorengandik gaur egunera hor nonbait, formulismoan oinarrituriko ekimena omen da. Andoni Egaña

Arratsaldeko saioetan mintzatu ziren **ahozkotasuna** gizarte zientzietan lantzeko erari buruz. Berria - Euskal Herria

D ereduko DBHn **ahozkotasuna** lantzeko metodo bat garatu dugu urteotan Euskal Herriko Bertsozale Elkartean. Joxerra Garzia

Informazioaren Gizarteak ez al du **ahozkotasuna** murriztu? Berria - Euskal Herria

Bertsolaritza eta bide batez, **ahozkotasuna**, ikasgelan lantzea ez da gauza erraza. Berria - Kultura

Ahozkotasunaren nagusitasun hori mende luzetan zehar gertatu da, inprenta asmatu arte. Joxerra Garzia

Zenbat aldiz esan ote didate, aldez edo moldez, nire idazkeran **ahozkotasunaren** hatsa sentitzen dela? Bernardo Atxaga

Ahozkotasunaren naturaltasuna eta freskotasuna darie Aiako semearen hitz horiei, lagunarte batean berriketan ariko balitz bezalako jarduera da. Berria - Kultura

Homeroren nortasunaren eta izaeraren inguruan, **ahozkotasunaren** eta, beraz, kolektibitatearen hipotesia sendotu duen liburuetako bat. Askoren artean

Erretorika berriek, pragmatikak, antropologiak, **ahozkotasunaren** teoriak eta, batez ere, bertsolariek berek albora utzi ezineko arrasto baliagarri mordo bat eskaini dizkigute azken urteotan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Artikulu horietan Garziak garbi utzi zuen **ahozkotasunaren** teknika ongi menperatzeak garrantzi handia duela: Hizketan (eta bereziki jendaurrean) taxuz ez dakienak arrakasta izateko aukera eskasa du gaur egungo munduan. Txema Ramirez de la Piscina

Gaia aldatzera behartu gintuen, edo, hobeto esan, Gide-ren **ahozkotasunari** buruz matraka ematen ari zitzaigun argentinarra isilarazi zuen. Ramon Saizarbitoria

Munduko herri aberatsetan, **ahozkotasunaren** bat-batekotik irakurketaren patxada geldira igarotzea izan da mende honen lehen urteetatik hasi eta ehun urte iraun duen gizartearen aldaketarik funtsezkoena. Pako Aristi

Ahozkotasunetik gertu dagoen hizkuntza eta estiloa darabil maiz. Berria - Kultura

Homero **ahozkotasunetik** ulertu behar dela aldarrikatzen badute ere, kritika literarioaren ohiko bidetik egiten dute homeristek Homeroren obraren azterketa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Konstrukto teoriko horrek -**ahozkotasun** primarioa, kultura idatzi inprimatua, **ahozkotasun** sekundarioa- badu bere egituran kutsu ia bibliko halako bat .Beste batzuk, ordea, bat-bateko **ahozkotasunarenak** baino ez dira. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

3 (hitz elkartuetan)

Orain, agrafiaren kontuak baztertuta, azken galdera: zer ote dago gure literaturaren **ahozkotasun** kutsuaz mintzo direnen buruan? Bernardo Atxaga

Euskararen kultur unibertsoak, izan ere, bere bizi-baldintza bereziak ditu; bere estrategia propioak garatzen ditu; oreka propioak ditu, adibidez, **ahozkotasun**-idatzizkotasun binomioan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Oiartzunen egin zuen sarrera hitzaldia, 1988ko uztailaren 30ean: Erdi-**Ahozkotasunaren** literatur estiloaz. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahozkotasuna eta (5); **ahozkotasuna eta** (5); **ahozkotasuna lantzeko** (10); **ahozkotasuna lantzeko** (10); **ahozkotasuna lantzen** (3); **ahozkotasuna lantzen** (3); **ahozkotasunari buruzko** (4); **eta ahozkotasuna** (5); **eta ahozkotasuna** (5)

---

ahozpetu ik **ahozpeztu**.

---

ahozpez 1 *adlag (ETCn **101** agerraldi; orobat **ahuspez** ETCn **663** agerraldi; eta **ahospez** ETCn **13** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ahuspez** agertzen da)* ahoz behera. ik **ahuspez**.

Jar zaitezte **ahozpez**. Elizen arteko biblia

Har ezazu inbutu handi bat, ipini **ahozpez**, ahoa beheraka. Pello Zabala

Metro parrasta egin nuen oraino, errepideari **ahozpez**, soina ezin lehengoratuz, bertze norabidean heldu ziren autoen tutuek Charly ohartarazi zuten arte. Aingeru Epaltza

Bi itzuli egin zituen gelan garrasika, gero hilik erori zen, **ahozpez**. Josu Zabaleta

Izuturik **ahozpez** erori nintzen; baina hark esan zidan: "Gizona, uler ezazu ikuskaria azken aldiari buruz ari dela". Elizen arteko biblia

Harria bekokian sartu zitzaion eta **ahozpez** jausi zen lurrera. Elizen arteko biblia

Lurrean gelditu zen, hasieran ezer sentitu gabe, **ahozpez**. Pako Aristi

Orduan -jarraitu zuen Moisesek-, zure funtzionario guztiak etorriko zaizkit eta **ahozpez** eskatuko didate: "Zoazte zu zeu eta atzetik duzun herria". Elizen arteko biblia

Etxe aitzinean zegoen Abel, lurrean etzanik, begitartea **ahozpez** eta odoletan, besoak zabalik, eskuineko eskuan lore zimeldu sorta bat zeukala. Daniel Landart

Zure oinetan **ahozpez** jartzera behartuko ditut, maite zaitudala jakin dezaten. Elizen arteko biblia

Iritsi nintzenean, **ahozpez** aurkitu nuen anaia, iraulkatu nahi eta ezinean, hasperenka eta lurraren kontra hazka eta atzaparka. Joan Mari Irigoien

Haiek, Jesus **ahozpez** gurtu ondoren, Jerusalemera itzuli ziren poz-pozik. Elizen arteko biblia

Ondoeza egin zitzaidan, eta tarte bat egin nuen hantxe, hilerriaren atarian **ahozpez** etzanda, konorterik gabe. Juan Luis Zabala

Ahozpez zerraldo, mugitzeko ahulegi, ondoezik eta dardaran, Harryk begiak zabaldu zituen. Iñaki Mendiguren

2 ***ahozpezko*** *izlag*

Ukaldi itsu bat besterik ez zen izan lurrera-behar hura niretzat, **ahozpezko** tupust egite bat konorte-galerarantz. Joxe Austin Arrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahozpez erori (13); **ahozpez erori nintzen** (6); **ahozpez erori zen** (3); **ahozpez etzan** (4); **ahozpez etzan zen** (3); **ahozpez etzanda** (4); **ahozpez jarri** (8); **ahozpez jarri zen** (3); **ahozpez jartzen** (3); **ahozpez lurrera** (3); **ahozpez lurrera erori** (3); **eta ahozpez** (10); **eta ahozpez jarri** (3)

---

ahozpeztu *(ETCn **264** agerraldi; orobat **ahuspeztu** ETCn **150** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ahuspeztu** agertzen da)* , ahozpezten **1** da/du *ad* ahozpez jarri. ik **ahuspeztu**.

Ahozpez bedi hautsetaraino, izanen baita, beharbada, itxaropenik. Elizen arteko biblia

Ahozpez gaitezen lotsaturik, desohorez beterik; zeren bekatu egin baitugu Jaunaren, geure Jainkoaren, kontra geuk eta geure gurasoek gaztetandik gaurdaino Nik eman dizkizuedan agindu eta legeak betetzen ez badituzue, beste jainko batzuk zerbitzatzera jo eta haien aurrean **ahozpezten** bazarete. Elizen arteko biblia

Zure tenplu santura begira **ahozpezten** naiz, zuri eskerrak emanez. Elizen arteko biblia

Ez **ahozpeztu** haien aurrean, ezta gurtzarik eman ere, ni, Jauna, zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaiz. Elizen arteko biblia

Mefi-Boxet, Jonatanen semea eta Saulen biloba, Davidengana heldu zenean, **ahozpetu** egin zen. Elizen arteko biblia

Zekor-irudia egin dute, eta haren aurrean **ahozpeztu** dira eta opariak eskaini dizkiote, esanez: "Hau da zure jainkoa, Israel, Egiptotik atera zintuena!". Elizen arteko biblia

Antzeman zion Saulek Samuel zela, eta lurreraino makurtuz **ahozpeztu** egin zitzaion. Elizen arteko biblia

Gero, lurrean **ahozpeztu** eta, turutek seinalea ematean, deiadar egin zioten Jainkoari. Elizen arteko biblia

Indar handiz eta beso ahaltsuz gurtuko duzue Egiptotik etorrarazi zintuzten Jauna eta honen aurrean **ahozpeztuko** zarete; berari eskainiko dizkiozue opariak. Elizen arteko biblia

Gizakiak, begiak bere hutsegiteetan jarriz, hondoraino apalduko du bere burua, Jainkoaren oinetan **ahozpezturik** errukia iristeko. Joan Mari Lekuona

Aldarearen oinetan **ahozpezturik**, lagun ziezaiela eskatzen zioten Jainkoari. Elizen arteko biblia

Abigail, David ikusi orduko, asto gainetik bizkor jaitsi eta makurtu egin zen Daviden aitzinean, lurreraino **ahozpeztuz**. Elizen arteko biblia

Egun batez, bere jainko Nisrok-en jauretxean **ahozpeztua** zegoelarik, Adramelek eta Saretzer bere semeek ezpataz jo eta hil egin zuten. Elizen arteko biblia

2 (era burutua izenondo gisa)

Gaztelu bere kaskoa ohargarria da harri gatilu **ahozpetua** iduri baitu. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahozpeztu egin (16); **ahozpeztu egin zen** (6); **ahozpeztu egin ziren** (6); **ahozpeztu eta** (15); **ahozpeztu eta esan** (3); **ahozpeztu haien** (4); **ahozpeztu haien aurrean** (3); **ahozpeztu nintzen** (3); **ahozpeztu zen** (13); **ahozpeztu ziren** (10); **ahozpeztu zitzaion** (5); **ahozpeztuko dira** (4); **ahozpezturik gurtzen** (4); **aitzinean ahozpeztu** (3); **aurrean ahozpezten** (6); **aurrean ahozpeztera** (3); **aurrean ahozpeztu** (22); **aurrean ahozpeztu eta** (6); **aurrean ahozpeztu ziren** (4); **aurrean ahozpeztu zitzaion** (3); **aurrean ahozpeztuko** (5); **aurrean ahozpeztuko dira** (3); **aurrean ahozpezturik** (8); **aurrean ahozpeztuz** (6); **eta ahozpeztu** (8); **eta ahozpeztu egin** (5); **eta ahozpezturik** (3); **eta lurreraino ahozpeztu** (5); **ez ahozpeztu** (6); **ez ahozpeztu haien** (4); **guztiak ahozpeztu** (3); **haien aurrean ahozpeztuz** (4); **lurreraino ahozpeztu** (14); **lurreraino ahozpeztu zen** (6); **lurreraino ahozpeztu ziren** (5); **lurreraino ahozpezturik** (7); **lurreraino ahozpeztuz** (8); **oinetan ahozpeztu** (3); **oinetan ahozpezturik** (5); **oinetara ahozpeztu** (3)

---

ahoztegi *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* lastategia.

Baigorriarra dugu sortzez Joseph Laxalde, Baigorriko ahotzaren semea (**ahoztegia** beti han dago gaur egun oraino, bainan ez da ibiltzen). ETC-prentsa

Plaza erdian den lehengo **ahoztegian**, orain beribil antolaketan ari den Garcia jaunaren lantegian sua lotu da joanden larunbat aratsaldean. ETC-prentsa

---

ahozulo *iz* ahoko zuloa.

Zapore metaliko batek betetzen zidan **ahozuloa**. Alberto Ladron Arana

Zapore metaliko batek betetzen zidan **ahozuloa**. Alberto Ladron Arana

Oroit naiz hodei apardun edo batzuk ikusi izana neure buru gainean zirimolaka eta gero apar hartaz busti izana **ahozuloa** eta lainope hartan galdu izana. Juan Garzia

Aho betean mintzo zen, gazta zati txikiak egiten zituen arren, bata bestearen ostean sartzen baitzituen **ahozulora**. Unai Iturriaga

---

ahozuri *izond/iz* janari bikainen zalea dena. ik **ñapur**; **mokofin**.

Berehala sentitu nuen haren zenbaki hura marka laidogarria zela, eta berehala hasi nintzen jostun **ahozuri** hura gorrotatzen, goren-goreneko handikiek gonbidatu zutena bere esklabo dohakabeak taula gainean erakustera. Matías Múgica

Gure gauzak **ahozurientzako** bazka izan daitezke. Berria - Harian

Sukaldaritza iberiarra zabarra dela eta ardoek ez daukatela Borgoña edo Chablis baten bouquet landua, esanen didate **"ahozuriek"**. Berria - Kultura

---

ahuakate *(ETCn **233** agerraldi, horietatik **125** azken sei urteetan; corpusean **aguakate** soilik, ETCn **36** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ahuakate** agertzen da) iz* tropikoetako zuhaitz baten fruitua, udarearen itxurakoa, azal berdea eta zimurra, hazi handia eta mami gurintsua dituena.

Entsalada handi bat ari da atontzen Luzia, hau dun ene jakirik gogokoena, esan berri dio Lucyri: letxuga, tomatea, tipula, piper berdea, arrautza egosia, endibiak, azenarioa, atuna, esparragoak, artoa eta **aguakatea**, izugarri gustatzen zaidan. Joxemari Iturralde

Aguakate eta saltsifiekin entsalada prestatua zuen, eta gero udaberriko biribilkiak atera zituen, eta alberjiniak, irin-arrautzetan bildu eta binaka frijituak, tartean ardi-gazta xerra ipinita; George, niretzat eskatu otarrain erdi bat egosita eta **aguakate**-entsalada bat! -oihu egin zuen Nevadak bainugelatik, han izotza zatikatzen ari baitzen. Juan Kruz Igerabide

---

ahuakateondo *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi) iz* ahuakateak ematen dituen arbola.

Ahuakateondoa ("Persea americana") jatorriz Mexiko erdialdeko zuhaitza da, Lauraceae familiakoa kanela, kanforrondoa eta ereinotzaren antzera. ETC-entziklopedia

Familia honetako espezie asko erabilgarriak dira, olio esentzialengatik (ereinotza, "Aniba rosaeodora", "Ocotea odorifera", "Cinnamomum camphora) ", fruituagatik (**ahuakateondoa**) edo zuragatik ("Chlorocardium rodiaei", "Eusideroxylon zwageri", "Ocotea porosa", "Endiandra palmerstonii"). ETC-entziklopedia

Eskuz jaten dugu saltsa, **ahuakateondo** edo "guacamole", martorri, tomate, tipula edo urazarekin batera. ETC-entziklopedia

Erdian, **ahuakateondoak** eta grevillea arbolak zituen ilaran, zeinek bi lerroko bide bat eratzen baitzuten naturalki. ETC-literatura, saiakera

Asegabeak barazki eta arrainaren koipeak dira, olioak (oliba, girasola, artoa...), **ahuakateondoa**, olibak, eta fruitu lehor koipetsuak (intxaurrak, urrak, almendrak...). ETC-prentsa

Afrikan pikoa eta barrabila hitz bera badira, Ameriketan ahuacuatldeitzen diote **ahuakateondoari**, barrabilen zuhaitza, alegia. ETC-prentsa

Klima gozoeneko gure itsasaldean garai batean ba omen ziren oparo ematen zuten **ahuakateondoak**. ETC-prentsa

Zenbait kasutan ondo gehituz izena gehiegi itxuraldatzen dela edo esateko ere zailtasunak gertatzen dira, adibidez, **ahuakateondo** edo arbendolondo, zailtasuna areagotuz deklinatzen direnean. ETC-prentsa

Horietakoak dira fruta-arbola asko, hala nola zitrikoak, **ahuakateondoa** eta fruitu hezurdunak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

ahuen ik **auhen**.

---

ahuku *iz* norbaiti, eskuarki hildako bati, lagun egiten dioten pertsonen multzoa. ik **segizio**; **jarraigo**.

Kachuri Gali kalean barna bazoaz, laster ikusiko duzu **ahuku** edo segizio zirraragarriren bat. Gotzon Garate

Nahasmendu ikaragarrian oinez, bizikletaz edo motozikletaz doan jende piloa, ordea, ez da axolatzen **ahukuan** doazenen nahigabeaz, ez eta bidea egiteko atabalak eta latoiak joz ateratzen duten soinuaz ere. Gotzon Garate

Xoxen bat botako ote dieten zain, alditxo batez haur batzuek jarraitu egiten diote **ahukuari**. Gotzon Garate

Ahukuaren atzealde itxurosoa pasatu, eta bi behatzaileak haren erlantzak eragindako itsutasun liluramenduzkotik beren onera etorri zirenean, esan zuen Almiranteak: [...]. Xabier Olarra

---

ahul 1 *izond* pertsonez eta abereez mintzatuz, indar edo kemen urrikoa.

Anaiei esaten die "poz hartu behar dutela, jende baxu eta mespretxatuarekin, behartsu, **ahul**, gaixo, legendun eta bide-bazterretako eskaleekin batera bizi izateaz". Askoren artean

Nazismoa gogorarazten du Schultzek: arrazismoa, gizon-emakume **ahulak** akabatu nahia, agintari klase berria boterera. Karlos Zabala

Gogoz gartsu izan arren, **ahula** baita gizakia. Elizen arteko biblia

Gu zoroak omen gara Kristorengatik; zuek, berriz, kristau zentzudunak. Gu **ahulak**, zuek sendoak; zuek izen handikoak, gu gutxietsiak. Elizen arteko biblia

Gu bezalako gizaki **ahula** zen arren, ez zen agindu arruntak betetzearekin konformatu. Askoren artean

Dakusazunez, gizon **ahula** da, gorputz meharrekoa. Xabier Kintana

Ikusten dut izaki **ahula** dela, gizona gobernatu ezin duena berak nahi bezala.Ez dituzue ardi **ahulak** indartzen, ez gaixoa sendatzen, ez eta hanka lotu ere hautsia duenari. itxaropena ematen dio **ahulari** eta ahoa ixten zuzengabeari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sendoa eta adoretsua absolbitu egingo dute, **ahula** eta lotsatia kondenatu. Juan Martin Elexpuru

Gorputza, **ahula** eta indargabetua egonik ere, indarberritu egin zitzaion. Askoren artean

(egolatria eta guzti, **ahulak** baikara gu ere, Markos. Markos Zapiain

Ezar dezala bere indarra boteretsuak -Xerxes batek, edo Herakles batek- **ahularen** gainean. Askoren artean

Ereiten dena mesprezagarria, pizten dena ospetsua; ereiten dena **ahula**, pizten dena indartsua. Elizen arteko biblia

Zaldia **ahul-ahula** zegoen eta erabat akiturik, geratzen zitzaion indar apurra azken tartean ahitu ondoren. Karlos Zabala

- **ahula** zegoen eta erabat akiturik, geratzen zitzaion indar apurra azken tartean ahitu ondoren. Karlos Zabala

Bata handiagoa eta sendoagoa eta bestea txikiagoa eta **ahulagoa** izatean. Xabier Kintana

Epaileak lapur ospetsu bat aurkitzen badu, lotarazi egingo du erregearen aurrera eramateko, frankoa bada (Francus); baina pertsona **ahulagoren** bat bada (debilior persona), bertan urkatuko du. Iñaki Iñurrieta

Zientzialariok diotenez, amak tolerantzia gutxiago du enbrioi eta fetu **ahulagoen** aurrean, eta bat-batean abortatzen ditu. Berria - Gaiak

Lurrak ez dik ematen gizakia baino ezer **ahulagorik**. Juan Kruz Igerabide

Beti gailendu den legearen arabera, indartsuenak **ahulena** zanpatzen du. Askoren artean

Horra nik zu nazioetan **ahulena** bihurtu, guztientzat mesprezagarri. Elizen arteko biblia

Ahulenen bazterketa gero eta handiagoa. Iñaki Heras

· Neure ikusmenaren **ahulak** eta neure eskuaren dardarak ez didate gutun luzerik izkiriatzera uzten, nihaurk behar ditudalarik izkiriatu. Jon Muñoz

· Labur esanda, juduen artean bizi nahi bazuen, biziko zen, eroak eta buru **ahulak** bizi diren bezala. Felipe Juaristi

2 *irud*

Burdinaz eta buztinez egindako oinetako behatzek hauxe esan nahi dute: aldi berean indartsua eta **ahula** izango dela erreinua. Elizen arteko biblia

Argi hotza, neguko argi **ahula**. Felipe Juaristi

Distira **ahul** gorrixka bat ikusten zen zerumugan ekialdera. Iñaki Mendiguren

Grenet zubi azpian liburu urratua irakurtzen ari zen eskalea agurtu zuen, su **ahulak** argitu ilunpean berotzen zela. Itxaro Borda

Aita moderno eta belaxkaren sindromea zegoen tarteko, hots, beldur alua, gure seme-alaben adimen **ahula** kordokatzeko. Aingeru Epaltza

Defentsa **ahula**, nirea: zuzendariordeak nire esku leku sobera utzi eta hura nola edo hala bete behar izana ez iduritu arrazoi jantzia. Aingeru Epaltza

Nolanahi dela ere, bankuen egitura **ahula** zen oraindik ere. Koro Navarro

Babeskien egoera miatu zuen, puntu **ahulak** bilatzen saiatu zen. Karlos Zabala

Zenbait material -harria, esate baterako- gogorrak dira konpresioari aurre egiteko, baina **ahulak** tentsioari eusteko. Irene Aldasoro

Estatua ezin zaielarik klase menderatzaileei nagusitu eta erakunde sindikalak oso **ahulak** izaten direnez, oso motelak izaten dira errenten birbanaketarako eta gizarte-babesaren garapenerako ahalegin serioak. Koro Navarro

Egun batean, ordea, aztarren bat aurkitu nuen, hain **ahula** eta hain lausoa ordea, non ez bainaiz aipatzera ere ausartzen. Josu Zabaleta

Humek ez du bide hori hartzen, indukzioaren kasuetan kontraesanez mintzatzea oso **ahula** -funts gutxikoa- izan baitaiteke. Askoren artean

Argitu beharra zegoen ea hain **ahula** ote zen oraindik haren ikusmena eta ikusle-nortasunaren oinarri guztia. Xabier Olarra

Hotsak ez dira ozen edo ahul, beste bat baino ozenago edo **ahulago** baizik. Lourdes Oñederra

Hots-bilkura baten ordez beste hots-bilkura **ahulago** bat egiteari esaten zaio ahultze edo *lenitio*. Lourdes Oñederra

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak adjektibo balioa duela)

Labur esanda, juduen artean bizi nahi bazuen, biziko zen, eroak eta buru **ahulak** bizi diren bezala. Felipe Juaristi

4 (izen gisa)

Ontasuna ahuldadea besterik ez da, eta **ahulen** esker txarrak eta lotsagabekeriak damura eramaten du beti jende jatorra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

5 *adlag*

Behin, negu garaian, santua bidaian zen eta, gorputza **ahul** zuelako eta bideak latzak zirelako, gizon pobre baten astotxo gainean zihoan. Askoren artean

Garagar, galtzuri, garagar gordin eta artatxikiz egindako ogi ugari izan zuten, edateko ur garbia, eta **ahul** zeudenentzat sagardoa urarekin, eta gainera babak eta barazkiak. Askoren artean

Inoiz **ahul** edo nekatuta dagoelako janari mamitsuagoak behar baditu, ez ditu ezkutuan hartuko, ageriko lekuan baizik. Askoren artean

Gorputzez **ahul** zegoenez, gizon pobre batek zeraman bere astotxoan. Anjel Lertxundi

Ahul samar zegoenez, nekazari behartsu batengandik astoa lortu zuen, bidaia egiteko. Askoren artean

Frantzisko, oso **ahul** eta gaixo zegoenez, asto gainean zihoan. Askoren artean

-Hain zara **ahula**, Billy. Lopez de Arana

Kanpoko euria ere entzuten zen, baina dezente **ahulago**. Aitor Arana

Egia da gero eta gaixoago eta **ahulago** aurkitzen dela Frantzisko. Askoren artean

6 ***agnostizismo ahul*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Agnostizismo ahula, "agnostizismo enprikoa" edo "agnostizismo leuna" bezala ere ezaguna, pentsamendu metafisiko agnostiko bat da, Jainkoaren existentziari buruzko jakintza eskuragarria dela dioena, baina gizakiak oraindik behar den jakintza edo garapen-maila eskuratu ez duela ere aipatzen duena. ETC-entziklopedia

7 ***elkarrekintza ahul*** *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi)*

Elkarrekintza ahula, elkarrekintza nuklear ahula, indar ahula edo indar nuklear ahula ere baderitzona, partikula subatomikoen arteko elkarrekintza-mekanismoa da. ETC-entziklopedia

Adibidez, fotoia (elkarrekintza elektromagnetikoa gauzatzen duen oinarrizko partikula) masa gabekoa den bitartean, W oinarrizko partikulak (**elkarrekintza ahula** gauzatzen duenak) masa ez-nulua du. ETC-prentsa

Adibidez, fotoia (elkarrekintza elektromagnetikoa gauzatzen duen oinarrizko partikula) masa gabekoa den bitartean, W oinarrizko partikulak (**elkarrekintza ahula** gauzatzen duenak) masa ez-nulua du. ETC-prentsa

Elkarrekintza bortitzeko partikulen artean nukleoiak dira 1 s-eko eskalan egonkorrak diren bakarrak eta, gainera, neutroiak **elkarrekintza ahularen** eraginez desintegratzen direla dakigu. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***elkarrekintza nuklear ahul*** *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Elkarrekintza ahula, **elkarrekintza nuklear ahula**, indar ahula edo indar nuklear ahula ere baderitzona, partikula subatomikoen arteko elkarrekintza-mekanismoa da. ETC-entziklopedia

Funtsezko indarrak bateratzeko ahaleginean, Einsteinek ez zituen aintzat hartu fisikaren garapen nagusi batzuk, batez ere Elkarrekintza nuklear bortitzak eta **Elkarrekintza nuklear ahulak**, heriotzaren ondorengo urte batzuetara arte ondo ulertu ez zirenak. ETC-entziklopedia

Alfa desintegrazioan ez bezala, beta desintegrazioa sortzen duen elkarrekintza fisikoa **Elkarrekintza nuklear ahula** da. ETC-entziklopedia

Zehazki, apurtzeko eman beharreko energia hori protoiak eta neutroiak bilduz nukleoa eratzeko askatu behar den energia-kantitate berbera da, **Elkarrekintza nuklear ahula** lotura-energia, alegia. ETC-entziklopedia

Lau dira indar horiek: grabitazioa, elkarrekintza elektromagnetikoa, elkarrekintza nuklear sendoa eta **elkarrekintza nuklear ahula**. ETC-prentsa

Sheldon Glashow-ek, Steven Weinberg-ek eta Abdus Salam-ek 1960ko hamarkadan elkarrekintza elektromagnetikoa eta b desintegrazioari dagokion **elkarrekintza nuklear ahula** biltzen dituen teoria bateratua plazaratu zuten. ETC-literatura, saiakera

9 *elkarreragin nuklear ahul* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Mekanikak unibertsoko materia ororen mugimendua azaltzen du lau oinarrizko indarren pean: grabitazio grabitatea, elektromagnetismoa, **elkarreragin nuklear ahul** eta elkarreragin nuklear sendoa. ETC-entziklopedia

Lehen pauso hau oso motela da, **elkarreragin nuklear ahularen** mende baitago protoi bat neutroi bihurtu ahal izateko. ETC-entziklopedia

W eta Z bosoiak **elkarreragin nuklear ahularen** partikula bitartekariak dira, naturako lau funtsezko elkarreraginetako bat. ETC-entziklopedia

10 *indar nuklear ahul* *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)*

Atomoak lotuak zergatik mantentzen ziren azaltzeko, beste indar batzuk behar ziren, eta bi aurkitu zituzten 1930eko hamarkadan: indar nuklear bortitza eta **indar nuklear ahula**. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, orain fisikariek lau indar zituzten esku artean, erradioaktibitatea eragiten zuen **indar nuklear ahula** eta nukleoari bat eginik eusten zion indar nuklear bortitza aurkitu ondoren. ETC-literatura, saiakera

Beste indar biek -indar nuklear bortitzak eta **indar nuklear ahulak**-, aldiz, giza baliabideetan oinarritu behar dute batik bat. ETC-prentsa

Hona zein diren naturan ezagutzen diren lau indar-motak: indar nuklear bortitza, **indar nuklear ahula**, indar elektromagnetikoa eta grabitazio-indarra. ETC-zientzia, zuzenbidea

Prozesu hau **indar nuklear ahularen** bitartez gertatzen da. ETC-entziklopedia

Elkarrekintza ahula, elkarrekintza nuklear ahula, indar ahula edo **indar nuklear ahula** ere baderitzona, partikula subatomikoen arteko elkarrekintza-mekanismoa da. ETC-entziklopedia

XX. mendean, teoria bateratu baten bilaketa eten egin zen **indar nuklear ahularen** eta elkarrekintza nuklear bortitz sendoaren aurkikuntzaren ondorioz. Bi indar horiek bateraezinak dira elektromagnetismoarekin eta grabitazioarekin. ETC-entziklopedia

Indar nuklear ahula ere atomoen nukleoaren barnekoa da desintegrazio erradioaktiboaren arduraduna da. ETC-entziklopedia

11 *lur ahul* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Zatar, anker, zital, makets, **lur ahularen** izurrite, Zazpiak erre. ETC-literatura, saiakera

"Begira", zioen Sigmak, chevroleteko soinutegian Bob Dylanen Hallelujah bukatzear zegoela, "ez da urrutira jo beharrik, **lur ahul** honen haga, herdoilak kurruskatua dela eta bike eskasez uhalak lepondoan zauri dagiela baimentzeko". ETC-literatura, saiakera

12 *nuklear ahul*

Badirudi herrialde batzuek beren industria **nuklear ahula** sendotzeko negozio nuklearrean parte hartzeko irrikan daudela eta ados jarri direla ateak irekitzeko beraientzat zein AEBentzat. Berria - Harian

13 *sexu ahul* adkor

Delituak saihesten dituena da benetako legedia, eta ez **sexu ahulari** heriotza damaiona, nabarmena denean ez duela gaiztakeriagatik egin bere hutsegitea, eta, gainera, garesti samar ordaindu behar izan duela. Juan Martin Elexpuru

Baditugu, **sexu ahularengan**, berrikeriak eta arinkeriak; dohainak dira horiek, eta ordena baztertu eta lotsa galtzeko egintzak eragin gabe, saihets dezagun horien kontrako zehazpenik, askatasun politikoarekin bateraezina izango bailitzateke halakoa. Andres Urrutia

Emakumezkoak gizonezkoak baino aiseago lotsagorritzen dira, **sexu ahulekoak** gara, Biok gara **sexu ahulekoak**, ni ere lotsagorritu nintzen, Sexuen ahultasunaz asko dakizu, Nire ahultasunaz asko dakit, eta besterenaz ere pixka bat, baldin eta liburuek badakite hitz egiten dutenaz. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ahots ahul (7); **ahots ahulez** (9); **ahul aire** (5); **ahul baina** (9); **ahul bat** (58); **ahul bat egin** (6); **ahul batek** (10); **ahul batekin** (9); **ahul baten** (9); **ahul batzuk** (5); **ahul dago** (22); **ahul dago eta** (4); **ahul dagoela** (13); **ahul edo** (4); **ahul eta** (93); **ahul eta gaixo** (7); **ahul hori** (5); **ahul horiek** (4); **ahul hura** (4); **ahul jardun** (6); **ahul samar** (9); **ahul samarra** (6); **ahul sentitzen** (9); **ahul zegoela** (6); **ahul zegoen** (8); **ahula bada** (4); **ahula baita** (6); **ahula da** (43); **ahula dela** (20); **ahula den** (7); **ahula egin** (7); **ahula eta** (30); **ahula izan** (28); **ahula izan arren** (4); **ahula izan da** (4); **ahula izan zen** (4); **ahula izango** (4); **ahula naiz** (5); **ahula naizela** (4); **ahula zela** (5); **ahula zelako** (6); **ahula zen** (16); **ahulago bat** (5); **ahulago dago** (6); **ahulago eta** (5); **ahulagoa da** (9); **ahulagoa den** (6); **ahulagoa izan** (8); **ahulagoa izango** (7); **ahulagoak dira** (6); **ahulak dira** (11); **ahulak direla** (5); **ahulak edo** (4); **ahulak ere** (4); **ahulak eta** (10); **ahulak ez** (5); **ahulak izan** (4); **ahulak ziren** (4); **ahulegia zen** (5); **ahulek eta** (5); **ahulen bat** (5); **ahulena da** (10); **ahulena eta** (4); **ahulena izan** (4); **ahulenetako bat** (4); **alde ahula** (4); **argi ahul** (12); **argi ahul bat** (5); **argi ahula** (8); **argi ahulak** (10); **argi ahularen** (5); **aski ahul** (5); **aski ahula** (4); **baina ahul** (4); **baina ahula** (6); **baina ahulak** (4); **baino ahulago** (20); **baino ahulagoa** (13); **baino ahulagoak** (10); **bera baino ahulagoak** (4); **bezain ahul** (5); **bezain ahula** (5); **da ahula** (8); **defentsa ahula** (6); **dolar ahula** (4); **edo ahulago** (4); **eragin ahula** (4); **ere ahula** (5); **eremu ahulak** (4); **eta ahul** (40); **eta ahula** (31); **eta ahula da** (5); **eta ahulago** (28); **eta ahulagoa** (20); **eta ahulagoa izan** (4); **eta ahulagoak** (9); **eta ahulak** (20); **eta ahularen** (4); **eta ahulena** (4); **eta oso ahul** (9); **gero eta ahulago** (18); **gero eta ahulagoa** (9); **gizon ahula** (5); **gobernu ahul** (7); **gorputzez ahul** (7); **hain ahul** (13); **hain ahula** (12); **horren ahul** (4); **inoiz baino ahulago** (5); **izpi ahul** (8); **jende ahul** (4); **oso ahul** (39); **oso ahul dago** (8); **oso ahula** (25); **oso ahula da** (8); **oso ahulak** (11); **oso ahulak dira** (5); **pertsona ahula** (4); **puntu ahul** (6); **puntu ahula** (4); **puntu ahulak** (7); **punturik ahulena** (5); **ronek ahul** (8); **talde ahula** (4); **talde ahulena** (6); **talderik ahulena** (5); **zeinen ahula** (4); **zion ronek ahul** (5)

---

ahulagotu, ahulago(tu), ahulagotzen da/du *ad* ahulago bihurtu.

Andresi iruditzen zitzaion ikusten ari zela Madrilen jende aberatsak, geroz eta ederragotuz, indartuz, kasta bihurtzeko zeraman bilakaera; bien bitartean herriaren bilakaera alderantziz gertatzen zen, **ahulagotuz**, geroz eta arloteago bihurtuz. Josu Zabaleta

Karakalaren txanponak erdia baino gehiago zeukan aleazioa; Alexandro Severorenak bi herenak; txanpona **ahulagotuz** joan zen, eta Galianoren garaian kobre zilarreztatua besterik ez zen ikusten. Iñaki Iñurrieta

Lanpararen olioa txinpartaka ari zen eta garra gero eta **ahulagotuz** zihoan kliskada. Juan Garzia

---

ahulaldi 1 *iz* ahultasunezko aldia.

Agian malenkonia gorputzaren **ahulaldi** bat delako, badirudi gose psikologiko bat ernetzen dela **ahulaldi** horri aurka egiteko. Pako Aristi

Dena sakrifikatuko al zenuke **ahulaldi** bat inoiz ez izateagatik, ohore hutsal eta barregarri horrengatik? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Indar horren eskasiak, horren **ahulaldiak** sortu ditu, hain zuzen, munduko monoteismo egituratu guziak: hinduismoa, judaismoa, kristaukeria. Patziku Perurena

- **Ahulaldi** bat, gotzain jauna -teteldu zuen On Camillok-. Koldo Biguri

Ez nuen ikasturterik huts egin arazo fisiko eta psikologikoak eduki arren; ez nion neure buruari **ahulaldirik** ametitu. Agurtzane Juanena

Miarritzeri etxean jokatzea dagokio hurrengo bi partidetan, eta aukera ezin hobea du **ahulalditik** irten eta duen maila erakusteko. Berria - Kirola

Bazakiat ez dela polita bertzeen **ahulaldiak** probestea gure xedeen lortzeko, baina, ergelkeria izanen zuan ez baliatzea. Aingeru Epaltza

Nire arrazoibideetan ez dudala inolako **ahulaldirik** izan. Josu Zabaleta

Petrolioaren garestitzeak eta dolarraren **ahulaldiak** ordainekoa eman zien atzo Europako eta Estatu Batuetako burtsei. Berria - Ekonomia

Jukos auziaz gain, finantza sistemaren **ahulaldiak** kezka sortu du. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahulaldi bat (4)

---

ahularazi, ahularaz(i), ahularazten du *ad* ahultzera behartu.

Badira datu gehiago dolarra **ahularazi** dutenak. Berria - Ekonomia

---

ahuldade **1** *iz* ahulezia.

Zure **ahuldadea** kemen bihurtuko da. Joan Mari Lekuona

Jusuf Khanek ulertu zuen galtzaile irten zela bizitzan aurreneko aldiz; emakume nafarrak irabazi egin zuela lehia, buru-azkarrago jokatu zuelako, izan ere, gizonaren **ahuldadea** erabili baitzuen emakumeak berak bere indarra sendotu eta gogortzeko. Felipe Juaristi

Ahuldadea ez da bide-makulua mundua aldatu nahi duenarentzat, ondo ikasia genuen araua inork irakasteko zain egon gabe. Anjel Lertxundi

Bere iritziz, defizit horrek AEBetako ekonomiaren **ahuldadea** beharrean, sendotasuna agertzen du. Berria - Ekonomia

Ontasuna **ahuldadea** besterik ez da, eta ahulen esker txarrak eta lotsagabekeriak damura eramaten du beti jende jatorra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zehazten zaila zen Noraren egoera berria, sentimenduak berak baino harantzago zihoan gogo-eza eta **ahuldadea** zituen-eta sentsazio nagusi. Anjel Lertxundi

Ahuldadea erakustea bere galbidea izan zitekeela argi zuen Ipar Koreak ordea. Berria - Mundua

Lurrak irents nazala **ahuldadeak** jota ikusten banauzue, edonolakoak izanda ere amorragarri horri egiten dizkiozuen izugarrikeriak! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ahuldadeak eta indarguneak non dauden definitu beharra aurreikusten du, irtenbidea proposatu ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Oroitzapen ilunek goibeldu zioten bekokia eta nekeak, **ahuldadeak** edo beldurrak menderatuko zuela iruditu zitzaidan une batez, baina berriro indar hartu zuen. Joxean Agirre

Besteen **ahuldadeak** norberaren indarrerako erabiltzen maisu bihurtutako pilotariaz aritu ginen hizketan. Berria - Kirola

Ahultasun uneren batean emakume hauetako bat bizkarretik eraso eta -bere **ahuldadeaz** ere jakitun- bere bizitza gurearekin lot zezan eskatzeko tentazioan erortzea ez zen zaila. Harkaitz Cano

Euskara antigoalduta geratuko da, ahozko kulturaren **ahuldadean** zokoratua. Pako Aristi

Burtsak ere, Bushek Bush izaten jarraitzen duela jasateko, dolarraren **ahuldadera** ohitu beharko du. Berria - Ekonomia

Neon-argi berdeak, bere **ahuldadean**, bakardade zaratatsua baizik ez zuen argiztatzen. Fernando Morillo

Modu berean, haur-hilketa ere kontraesan saihestezin baten ondorioa da, zeinetan aurkitzen baita derrigorrez edo **ahuldadez** amore emandako pertsona. Juan Martin Elexpuru

Existitzen den oro arrazoirik gabe jaiotzen da, **ahuldadez** luzatzen eta halabeharrez hiltzen. Monika Etxebarria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ea lagunak benetakoak izan diren ala denbora betetzeko behar zenituen adabakiak, eta Jaunarena esnatu zen bezala esnatzen zara: bat-bateko itomenak eragindako **ahuldade** handi batekin, zure egunen udazkenean, eta harrituta, gertatu zaizuna ezin sinetsirik. Pako Aristi

Armeniaren **ahuldade** nagusia energia iturririk ez izatetik dator. Berria - Gaiak

Era berean indartu ere egiten gaitu, eta Isidorak bere bizi-poza **ahuldade** zarpailetatik atera eta ohikoa zuen mailara, edo antzekora, jaso zuenean, agur esan zion ahizpari. Pako Aristi

Dylanen begirada aztertu du, eta iruditu zaio Mendaolatzara iritsi aurretik giza zabortegien bazter latzagoetan galdua ibili denaren bakardadea erakusten duela, **ahuldade** ugariz jantziriko indar biluzi hori. Pako Aristi

Artean baraurik nengoen goiz hartan, eta orduko **ahuldade** eta burzoroan aise egiten nituen hitzak eta keinuak. Fernando Rey

Neskak, bere itxurako **ahuldadean**, ez dio inoiz patuari izkintxo egin. Jokin Muñoz

Baina Luis erregek bazuen ezkutuko **ahuldadea**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zena zela, gauaren erdian esnatu nintzen, kalenturarekin, egundoko **ahuldadearekin**, eta sabeleko minarekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Damutu zen **ahuldade** barkaezineko une batean bere gurariri ezkutuenak agertu izanaz halako pertsonari. Bego Montorio

3 (hitz elkartuetan)

Ahuldade zantzuak lehenengoz erakusten ari zenean, zenbait aurkari haren nagusitasuna zalantzan jartzen ari zirenean, hain justu, orduan eman zuen leziorik handiena. Berria - Kirola

Ni hunkitzea nahi zuen, eta lortu ere lortu zuen une batez, baina berehala gainditu nuen **ahuldade**-unea. Inazio Mujika Iraola

Orain, **ahuldade** une hauetan, nire burua zure belaunetan gordetzeko beharra dut. Felipe Juaristi

Ahuldade mementoetan onarpena lortzeko umiliaziora iristen da. Berria - Kultura

-Hiltzeko zigorra altxata Erromaganako begiramena baino zuzenago interpretatuko duk **ahuldade** sintomatzat. Koldo Izagirre

· Giza **ahuldade** izugarri bat aprobetxatu du kontsumismoak: besteak baino gutxiago izan nahi eza. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ahuldade eta (3); **ahuldade nagusia** (3); **ahuldadeak eta** (3); **ahuldadeak jota** (5)

---

ahuldu, ahul(du), ahultzen **1** da/du *ad* ahul bihurtu, indarra edo kemena urritu. (pertsonei buruz)

Behin eritzen gara eta berriro eritzen gara, eta erialdi bakoitzean hondatzen eta higatzen zaigu gorputza, urritzen eta murrizten zaizkigu indarrak eta kemenak, **ahultzen** eta flakatzen gara. Joan Mari Irigoien

Organoak nolabait euskarrituko dituen ezer ez dagoenez gero, gorputza **ahultzen** eta lohadar guztiak moteltzen dira, besoak eta betazalak jausten eta, etzanda ere, belaunak tolesten eta giharreak bertan-beheratzen. Xabier Amuriza

Zentralisten eta euren komunikabideen erasoak **ahuldu** egin beharrean indartu egin gaitu. Migel Angel Mintegi

Ahuldu egingo zara, badakizu, baina ordainez, arinagoa bihur dezakezu, beharbada, torturaren erasoa. Rafa Egiguren

Gazteak ere nekatzen dira eta akitzen, sasoitsuenak ere **ahuldu** eta erortzen. Elizen arteko biblia

Hori dela eta, espiritu ahulak erori eta indartsuak **ahuldu** egingo ziren beldur zen. Askoren artean

Zafraldiak gorputza **ahuldurik** eta mindurik utzi zidan, hainbertzeraino non bi egunez ohantzetik ezin jaikirik egon bainintzen. Aingeru Epaltza

Substantzia batzuek, batez ere aspirinak eta alkoholak, mukosa **ahultzen** dute, eta urdaileko odoljarioarekin edo urdaileko ultzerekin lotzen dira sarritan. Irene Aldasoro

Ahuldu egingo baitira gaiztoen besoak; zintzoei, ordea, Jaunak eutsiko. Elizen arteko biblia

Orduan eskuak dardaraka zaizkit jarriko eta zangoak **ahulduko**. Elizen arteko biblia

Orduan, Ulisesen belaunak **ahuldu** egin ziren, arrisku handia baitzen hura. Juan Kruz Igerabide

Bat-bateko izuz joko zaituztet, zuen begiak **ahuldu** eta bizi-indarrak jango dizkizuen gaitz galgarriz eta sukarrez joko. Elizen arteko biblia

Bien bitartean, haurtxoa **ahulduz** zihoan. Askoren artean

Erredurak eta kimio-saiotan **ahuldu** eta erretako azala goxatzeko probatu duenak, badaki zer den intsus-ukendua. Pello Zabala

2 (bestelakoez)

Ez ni baztertu zahartu naizen honetan, ez eskutik utzi indarrak **ahuldu** zaizkidanean. Elizen arteko biblia

Loa denbora galtzea duk; lo gehiegiak **ahuldu** egiten ditik gorputza eta espiritua, **ahuldu** kontzientzia, **ahuldu** aleman onaren dohainak. Anjel Lertxundi

Ordu arte, Ivan Ogareffek egia baizik ez zuen esan; baina, Irkutskeko defendatzaileen adorea **ahultzeko** asmotan, emirraren tropen garaipenak puzten eta harrotzen hasi zen. Karlos Zabala

Niri kemena **ahultzera** etorri haiz hona, ala? Jon Muñoz

Zentralistak edozer emateko prest egongo litzateke abertzaleak gobernutik kendu eta abertzaletasuna **ahultzeko** eta lohitzeko. Migel Angel Mintegi

Urgulldikako kolpe-zaratak eta oihu urrunak **ahuldu** egin bide ziren, moteldu, eta pixkanaka iraungi. Txillardegi

Orga urrundua zen, zarata **ahuldua** zen emeki, eta mendian galtzen zen heinean haurtzaroaren berragertze izarniatsua itzali egiten zen ene gogoan. Koldo Izagirre

Zenbait egunetan zorionak itsutua egon zen, baina hastapeneko irrika hura **ahuldu** egin zitzaion gero, poztasuna itzali, eta ez gertakari berriren baten eraginez, ezpada zalantza zorrotzak ausikika hasi zitzaizkiolako. Patxi Zubizarreta

Ehun eta hogei urte zituen Moisesek hil zenean; ez zitzaion ikusmena **ahuldu**, ez zioten indarrek huts egin. Elizen arteko biblia

Ahultzen sumatu zuen Ruche jaunak bere erresistentzia. Jon Muñoz

Oro har, ia denen osasuna hasiko da **ahultzen** eta makaltzen. Joseba Sarrionandia

Bizitzeko nahia hala **ahuldurik**, nekez iraun zezaketen luzaroan infernu hotz eta lokaztu hartan. Imanol Zurutuza

Hortik datoz, halaber, aitaren aginpidea **ahuldu** zuten legeak, aitari seme-alaben ondasunen jabegoa kenduz. Iñaki Iñurrieta

Ondo dakit inperioa **ahuldu** zenean barbaroek merkatuak irekitzera eta berekin salerosketan aritzera behartu zituztela erromatarrak. Iñaki Iñurrieta

Liburu asmatuek asmakizun munduan sartzen gintuzten, balizko euskal dermio **ahulduan**, lastertasuna bihurtuz abiadura, orain arte beharrezkoa izan dena derrigorrezko eginez hemendik aitzinat. Pello Salaburu

Gainera, oso ondo kokatuta zegoen Italia eta Asia arteko merkataritzarako; izan ere, Afrika deuseztu eta Grezia **ahuldu** ondoren, askoz garrantzitsuago bihurtua baitzen. Iñaki Iñurrieta

Liskar zibilek, triunbiratoek, legez kanpo uzteek, aurrez egindako edozein gerrak baino gehiago **ahuldu** zuten Erroma. Iñaki Iñurrieta

Abisiniarrek berrogeita hamar eguneko garizuma gogorra dute, eta hainbeste **ahultzen** dituena, non denbora luzean ezin izaten baitute ezer egin. Iñaki Iñurrieta

Baldin eta, erromatar enperadoreek bezala, zilarra bai baina urrea **ahulduko** ez balu, berehala ikusiko luke urre guztia desagertzen. Iñaki Iñurrieta

Frantzian dirua erdira **ahulduko** balitz, eta hiru liberako ezkutu zaharrak Holandan hirurogei sos-erdi emango balitu, ezkutu berriak hogeita hamar besterik ez lituzke eman behar. Iñaki Iñurrieta

Enperadoreek **ahuldu** egin zituzten lege haiek, senarren, bi seme-alaba zituztenen eta hiru seme-alaba zituztenen eskubideak zirela-eta eman zituzten pribilegioen bidez. Iñaki Iñurrieta

Espero nuen sinesle HBtar gazterik **ahuldu** horien gogoak bizkortzeko zerbait eskainiko zigula, baina, tutik ere ez. Patziku Perurena

Tradizio ezak hondatu, **ahuldu**, mehetu egingo luke hizkuntza, hala nola abitaminosiak gorputzaren azala. Bernardo Atxaga

Pixkanaka, **ahuldu** zen nire obsesio hura; edo, agian, barruragotu egin zitzaidan. Koro Navarro

Ez ninduan Mauleko goarnizioa **ahultzera** ausartu, eta Bordeleko Parlamentuak -erromazale-zulo zikina! -inoiz ez zidaan armagizon gehiagoren soldata ordainduko. Aingeru Epaltza

Hizkuntza, sineste, ohitura edo kultura indartsuenak indartuz eta ahulenak **ahulduz**. Piarres Xarriton

3 (adizlagunekin)

Oso **ahulduta** sentitzen zen, kordea galtzeko zorian. Lopez de Arana

Polonia hartako jendeak elkarrengana lotzen zituzten indarrak, ordea, zeharo **ahulduak** zeuden XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren hasieran. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ene taularen gainean etzaten niz, arrunt **ahuldua**, eta trenputxartzen niz. Michel Oronoz

Bost aldiz eduki dute zigor ziegetan isolatuta, tratamentu farmakologikoan ezartzeko gomendatzen zaie zuzendariei, borondatea **ahultzearren**, bere indibidualismoaren azpian kontzeptu etiko distortsionatuak omen dituelako. Koldo Izagirre

4 (era burutua izenondo gisa)

Mendietan goiti gozoki doan eguzkiak, zurbila izan arren oraino, badu aski indar preso **ahulduak** poxi bat suspertzeko. Xabier Montoia

Une hartan, andre gutietsi eta menperatuari izpiritu **ahuldua** ernatu zitzaion eta gorputz ukurtua xut jarri zitzaion, oldartuz. Elena Touyarou

Errusia komunistak, mendebaldartzen ari zen Indiak bezala, bere kultur iraganetik nekazari **ahulduen** arazoa heredatu baitzuen. Iñaki Mendiguren

Mendietan goiti gozoki doan eguzkiak, zurbila izan arren oraino, badu aski indar preso **ahulduak** poxi bat suspertzeko. Xabier Montoia

Duela gutxi arte, birusen aurkako txertoak birus **ahulduekin** egiten zituzten eta gorputzak abantaila guztiak zituen haien kontrako gerran. Pako Aristi

Aginte zentral **ahuldu** batetik libre zeuden merkatariek gauzatu zuten, Mediterraneoko eta Ipar Itsasoko portu-hirietan, Europaren integrazio-prozesua XI. mendetik aurrera. Koro Navarro

· Zahartu eta **ahulduaren** otoitza. Elizen arteko biblia

5 (era burutua adizlagun gisa)

Ilea moztuko balidate, indarra galdu eta **ahuldua** geldituko nintzateke eta beste edozein bezalakoa izango. Elizen arteko biblia

Arrazoimena **ahuldua** zuen eta irudimena lotsagabeki indartua. Askoren artean

Begiak nahigabez lausotuak ditut, horrenbeste zorigaitzez **ahulduak**. Elizen arteko biblia

Gorputzez erabat **ahuldua** bazegoen ere, borroka berrietan etsaiaren aurka garaipena lortzea zuen amets. Askoren artean

Ezertarako ez nituen haien besoak, zeharo **ahulduak** baitzeuden. Elizen arteko biblia

Nekaturik eta **ahuldurik** dagoen bitartean, gainera joan eta izutu egingo dut. Elizen arteko biblia

Kontuan hartu behar da gainera, Frantziskoren idazki gehienak bere azken urteetakoak direla, **ahuldurik** eta gaixo zegoen garaikoak, alegia. Askoren artean

Gehiegizkoa zen eginbide horrek eragiten zion nekea, batez ere bigunkerian bizi izan zelako munduan eta berez ere ahula zelako, eta are **ahulduago** zegoelako bere gehiegizko barau eta penitentziagatik. Askoren artean

Babiloniako erregearen besoak indartuko ditut, faraoiarenak **ahulduta** eroriko diren bitartean. Elizen arteko biblia

Frantzian eta Ingalaterran zapuztu zituzten azkenean matxinadak, baina hala ere **ahulduta** utzi zuten jaunen ekonomia. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahuldu da (5); **ahuldu dira** (3); **ahuldu du** (3); **ahuldu dute** (3); **ahuldu egin** (33); **ahuldu egin zen** (7); **ahuldu egin ziren** (3); **ahuldu egin zitzaion** (3); **ahuldu egingo** (11); **ahuldu egiten** (38); **ahuldu egiten da** (7); **ahuldu egiten dira** (5); **ahuldu egiten du** (6); **ahuldu eta** (27); **ahuldu gabe** (5); **ahuldu nahi** (6); **ahuldu zen** (4); **ahuldu zitzaion** (3); **ahuldu zuen** (9); **ahuldu zuten** (3); **ahuldua eta** (4); **ahuldua geldituko** (4); **ahuldua geldituko nintzateke** (4); **ahuldua izanez** (4); **ahuldua zen** (3); **ahuldua zuen** (3); **ahulduko da** (3); **ahuldurik dago** (3); **ahuldurik eta** (5); **ahulduta dagoela** (4); **ahulduta eta** (6); **ahulduta geratu** (4); **ahulduta zegoen** (4); **ahulduz eta** (3); **ahulduz joan** (9); **ahulduz joan da** (3); **ahultzea eta** (6); **ahultzea lortu** (4); **argia ahuldu** (3); **arras ahuldua** (5); **arrunt ahuldua** (4); **asko ahuldu** (4); **batek ahuldu** (3); **beti ahulduz** (3); **bihotza ahuldua** (3); **demokrazia ahuldu** (3); **dolarraren ahultzea** (3); **erabat ahuldua** (3); **ere ahuldu** (6); **eta ahuldu** (8); **eta ahuldu egiten** (3); **eta ahuldua** (6); **eta ahuldurik** (5); **eta ahulduta** (11); **eta ahulduz** (4); **eta ahultzea** (6); **eta ahultzea lortu** (3); **euroa ahultzea** (3); **ez ahultzea** (3); **gehiago ahuldu** (3); **gobernua ahuldu** (3); **hori ahuldu** (4); **hori ahuldu egin** (3); **horrek ahuldu** (4); **hura ahuldu** (4); **indarra ahuldu** (3); **indarrak ahuldu** (4); **osagarria ahuldua** (3); **osagarriz ahuldua** (3); **oso ahulduta** (4); **zeharo ahulduak** (3)

---

ahuldura *iz* ahulezia.

Gure **ahuldura** handia, holako galera ttipi askoren meta baita. Patziku Perurena

Izan ere, nork bere defentsarako ukoak, hagitz ttikiak badira ere, arau eta usario bihurtzen badira, **ahuldura** izugarria ekartzen baitute atzenerako. Patziku Perurena

Berdintsuan ibili dira beti, Ezcurra borondatetsuena eta jokotsuena izanez burutik buru, Filipe abil batez lagundua, hunek **ahuldura** batzuekin ondarrerat halere. Herria

---

ahuleria *iz* ahulezia.

Begirik zorrotzenak ere ez dezake ikus denborak eta naturak gauzei zer eransten dien, emeki-emeki hazaraziz, ez adinak eta **ahuleriak** zer kentzen dien; ez haitzek, itsasoan zintzilik, uneoro zer galtzen duten, gatz hozkariak janda. Xabier Amuriza

Pesimismo hori gainbeheraren, hondamendiaren, nekearen eta **ahuleriaren** seinale ote da baitezpada? Iñaki Segurola

Behin, Frantzisko santua Bevagnara zihoala, barauak sortutako **ahuleriagatik**, ezin izan zen herrixkaraino iritsi. Askoren artean

Jauna, zatoz laster ni nire **ahulerietan** laguntzera, pazientziaz eraman ahal ditzadan! Askoren artean

Jauna, zatoz laster ni neure **ahulerietan** laguntzera, pazientziaz eraman ahal ditzadan! Askoren artean

Lehengo batean, Iruñetik abieran ginela, Lurdesek zer emanen **ahuleria** kentzeko eta? piko lehor batzuk! Patziku Perurena

Zatiketak **ahuleria** dakar. Gotzon Garate

Berriz neure onera etorri nintzenean, gainera, arrunt gaizkiturik eta ahul sentitu nintzen, ezin adierazizko moduan ondoezik, **ahuleria** luze baten ondorenean bezala. Koro Navarro

Gaur, bazkalondoan, hari-mataza askatu egin da eta telefonoaren txirrinak etxeko isiltasuna hautsi du, bazkalondoko bakearen kristal finezko **ahuleria** pitzatuz. Pako Aristi

Baina goseak zaudenean, tentazio hutsa da ogi kozkor bat: ene zerebroak bizi zuen flakia eta **ahuleria** egoera hartan, eskandaluzko aldizkari bat baino irrikagarriagoa iruditu zitzaidan zerrenda hura. Joxan Elosegi

Badakit zenbat dezakeen giza **ahuleriak** eta zenbat lagundu nahi diodan. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ahuleria eta (5); **eta ahuleria** (3)

---

ahulezia **1** *iz* indar, kemen, bizkortasun urritasuna; hortik datorren egoera.

Touretteren sindromea gaixotasun organikotzat baino areago gaixotasun "moral"tzat hartu zen: gaiztakeria edo borondatearen **ahulezia** adierazten zuen; hots, borondatea bideratuz tratatu beharreko gaixotasuna izan zen. Xabier Olarra

Neure **ahulezia** dut aitortuko; begiak malkoz zaizkit busti, eta sentitu dut neure baitan bultzada bat, gogoz bertzerakoa, baina zoragarria. Jon Muñoz

Zer adierazten dute balakuek, balakatzera behartuta dagoenaren **ahulezia** ez bada? **Ahulezia** guzien ondorio, halako indar bat: gelditasunaren aisetasuna, inertziaren tema.

Platonen legea instituzio lazedemoniarren gainean eratua zen, non magistratuaren aginduak erabatekoak baitziren, non desohorea zorigaitzik handiena baitzen, eta **ahulezia** deliturik handiena. Iñaki Iñurrieta

Gero eta oinaze-kolpe bortitzagoek erasotzen diote, gero eta maizago, eta **ahuleziak** ezinegona sortu dio. Imanol Zurutuza

Gizakiari, ordea, **ahuleziak** jotako izakia baita, ezinezkoa zaio Bildots orbangabe gurutziltzatuari bete-betean jarraitzea. Askoren artean

Kasik joko bat bezala bihurtua zen, etsaiaren **ahuleziak** ahal bezainbat baliatzea lanetik gelditzeko edo lanak ahal bezain larriki egiteko. Eneko Bidegain

Ez zeukan bere buruaz eta gogoaz jabetzeko indarrik, eta alfer-alferrik zuen aitari deus esatea, hilkorren **ahuleziatzat** baitzeukan hark sentimenduen agerpen oro. Anjel Lertxundi

Ahuleziagatik eta gaitzaren oinazeagatik hitz egiteko gauza ez naizenez gero, hiru hitz hauetan agertzen diet laburki ene anaiei, oraingoei eta gerokoei, neure borondatea eta asmoa: [...]. Askoren artean

Nahikoa duzu nire laguntza, nire indarra **ahulezian** agertzen baita bete-betean (2. Kor. 12, 9). Imanol Unzurrunzaga

Eta nola sentiarazi ninduten haren beso sendoek **ahulezian** sendo, eta nola, haren gorputz osoak, neure deusezean oso! Xabier Olarra

Nahikoa duzu nire laguntza, nire indarra **ahulezian** agertzen baita bete-betean. Elizen arteko biblia

Gure **ahuleziaren** ideiak lagun daraman Tristura Umiltasuna deitzen da. Piarres Xarriton

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zehaztasun handiz margotu zituzten; halere, pintzelaren azpian, haien aurpegiak gizakien aurpegien **ahulezia** misteriotsuaz gabeturik zeuden. Monika Etxebarria

Kritiko askok ez du mende honetako nobelagile punta-puntakotzat jotzen; ez da harrigarria, bai baititu bere muga eta **ahulezia** estetikoak. Anjel Lertxundi

Horretan ez naiz hura bezain zuhurra, eta emakume baten **ahulezia** osoaz sentitu dut zure isiltasuna. Jon Muñoz

Bai miseria handia eta **ahulezia** negargarria, bera hain bertan eduki eta zuek munduko beste zerbaitez axolatzea! Askoren artean

Amnesikoei baizik ez zaie gertatzen **ahulezia** larri-larri hori. Xabier Olarra

Harrigarriak ziren Gregen indarra eta poza; txaloak joz kantatzen zituen etengabe, ohiko **ahuleziaren** eta nekearen arrastorik gabe. Xabier Olarra

Jende xaharra ikusten dut eta lehen denboretako fedea holakoetan sentitzen dut, nerearen behin betiko **ahuleziari** minik ere egiten ez diotena. Piarres Aintziart

3 (hitz elkartuetan)

Ez zuen maitalerik, ezagunik behintzat, ez zuen **ahulezia** susmorik. Josu Zabaleta

Ahulezia une hura ez zen segundo batetik gora luzatzen; berehala Thérèson andreak begiak zabaltzen zituen atzera, eta esaldiari lotzen zitzaion berriz. Monika Etxebarria

Nortasun **ahulezia** bat ia beti sendagaitza eta orori ihardukitzen zaiona. Jon Muñoz

Laguna atzetik zihoakion, nekeak jota hura ere, eta, giza **ahuleziak** eraginda edo, bere baitarako hasi zen esaten: [...]. jakin bezate beren espiritu-**ahulezia** hartu duela Jaunak kontuan, aski izango bailitzateke izu-ikara, borrokaldia hasi baino lehen haiek hondatzeko. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ahulezia bat (4); **ahulezia eta** (12); **ahulezia ez** (5); **ahulezia ez zetorrela** (3); **ahuleziagatik eta gaitzaren** (3); **ahuleziak ere** (3); **ahuleziak eta** (9); **ahuleziak eta indarguneak** (3); **ahuleziak joko** (4); **ahulezian agertzen** (3); **ahulezian agertzen baita** (3); **ahuleziarik gabe** (4); **baten ahulezia** (3); **bere ahulezia** (17); **bere ahuleziak** (5); **da ahulezia** (3); **da bere ahulezia** (3); **dolarraren ahulezia** (4); **erakutsitako ahulezia** (3); **eta ahulezia** (18); **eta ahuleziak** (9); **eta ahuleziarik** (3); **haren ahuleziak** (4); **indarra ahulezian** (3); **indarra ahulezian agertzen** (3); **neure ahulezia** (3); **neure ahuleziaz** (3); **nire ahulezia** (3); **nire indarra ahulezian** (3)

---

ahulgarri *izond* ahultzen duena.

Etsirik nengoen hil egingo nintzela, eta behin tumorea erauzi eta erradiazio- eta kimioterapia-tratamenduen oinazealdi **ahulgarriak** igaro ondoren, larrigura- eta zorabio-aldi luzeak pairatu, ilea galdu, gogoa galdu, lana galdu eta emaztea galdu ondoren, zail zen niretzat aurrera nola jarraitu asmatzen. Oskar Arana

Betikotasunak ere ez du zirrara **ahulgarriagorik** sortzen gogamenean. Ibon Uribarri

Bero zakar eta **ahulgarrien** ondoren, trumoitan eztanda egin, eta, batzuetan, itsas aldetiko ataka zabalduta uzten du. Pello Zabala

Ez nuen ildo hartatik jarraitu nahi, **ahulgarria** baitzen, eta suspertzeko asmoa izan nuen, pentsabide hartatik ateratzekoa. Bernardo Atxaga

---

ahulgune *(ETCn **884** agerraldi, horietatik **449** azken sei urteetan) iz* gune edo alderdi ahula. ik **ahulune**.

Hori da hormaren **ahulgunea**. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriaren "argazkia" atera eta **ahulguneak** eta indarguneak non dauden identifikatzea litzateke helburua. Berria - Harian

Bazuen Fortunato honek **ahulgune** bat, nahiz eta gainerakoan errespetatzeko moduko gizona zen, baita ikara sortzeko modukoa ere. Koro Navarro

Eta nola psikiatrak **ahulgune** bat baitzuen -bere iragana, inortxok ere ez zekiena-, bide luzea egin zezakeen bekaitzak egoera hartan. Joan Mari Irigoien

Auto-estimua da bere **ahulgunea**. Xabier Paya

Dena den finalerdian **ahulguneak** erakutsi zituen Serenak eta gorriak ikusi zituen Mauresmo kanporatzeko. Berria - Kirola

Fisikoki ongi baino hobeto hornitua zegoen arren -emakume ederra baitzen, mendian ahuntz nekagaitzen moduan ibiltzen zena-, bere ahuleziak eta bere **ahulguneak** baitzituen Sarak eremu psikologikoan. Joan Mari Irigoien

Helezina eta haustezina zirudienak bazuen, itxura batean, ahulezi puntu bat eta **ahulgune** bat -beldurra baino beldurgarriagoa zena!, haren hitzetan-, eta **ahulgune** hartarik hauts zitekeen haren mundu ustez sendoa. Joan Mari Irigoien

Kristau Elizak egin zuen Eskritura juduen birsagarapena, kristau-fedearen Itun Zahar gisa, **ahulgune** bat zen kristautasunaren armaduran, handik zehar zulatzen zutelarik kristau-kontzientzia judu-kritikaren geziek. Iñaki Mendiguren

Delitugintza kopuru handia eta futbol selekzio ahula izateak izan dira Hegoafrikaren **ahulgune** nagusiak. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahulgune bat** (5)

---

ahulkeria *iz adkor* ahulezia gaitzesgarria.

Ohiturei dagokienez, N hiriko damak oso zorrotzak ziren, barru-barruko sumindura erakusten zuten galdukeria eta bekatu ororen aurrean, eta batere gupidarik gabe gaitzesten zituzten **ahulkeria** guztiak. Jose Morales

Miretsiko dut, oroz gain, bertutearen bihozberatasun hori, ez baititu gure **ahulkeriak** ezagutzen haiek urrikaltzeko ez bada, eta atxiki baitu haren xarma ahaltsuaz nagusigo hain ezti eta bortitza bihotzen gainean, bai halaber amodioaren xarmaren ondoan ere. Jon Muñoz

Eta **ahulkeria** honek asaldatzen nauenean, nire burua zuritu nahia datorkit; zuk dakizu, Jauna, nolakoa, eta kolokan uzten nau. Imanol Unzurrunzaga

Errenda dadi, baina borroka dadi; garaitzeko indarrik ezean, izan beza aihertzeko indarra; bere gogara goza beza bere **ahulkeriaren** sentipena, eta izan bedi bere hondamena aitortzera behartua. Jon Muñoz

Azkenik, sinets zenezake ezen, alde egin zuenean, beltzuritu antzean nintzela, eta gaur gauean berriz jin dadin onartzeko **ahulkeriara** lerratu nintzela orobat: horretaz dolutzen naiz bertze guztiaz bainoago. Jon Muñoz

Ahulkeria eztia izanen da haren ordez nagusi. Jon Muñoz

Gizon biziotsua zein prestua berdin tratatzera garamatzan bihozberatasun horretan, ordea, ez dut **ahulkeria** arriskutsu bat baizik ikusten. Jon Muñoz

Baldin errendatzen banaiz haatik, **ahulkeria** hutsagatik da: zeren eta nahi izanez gero, zenbat jukutria egin nitzake oraino! Jon Muñoz

Okasio hori ez ohi da beti itzultzen, batez ere lehenengo **ahulkeria** izan delarik: sarri, kasu horretan, garaitiarik ederrena eragozteko ez da behar izaten beltzuri une bat edo susmo jeloskor bat baizik, edo are gutxiago oraino. Jon Muñoz

Adierazpenok ez dutela alarma sozialik sortzeko asmorik esan du, eta ez dituela egin **"ahulkeria** politikoagatik". Berria - Harian

Zeren azken finean, alde horretarik, zinez okasio galdua litzateke, eta okasio hori ez ohi da beti itzultzen, batez ere lehenengo **ahulkeria** izan delarik. Jon Muñoz

Nik, neure aldetik, ez dut dudarik egiten ezen itzulera hori hein handi batean ez denik zure aihertze kementsuaren obra, eta zure aldetikako **ahulkeria** une batek ez zuenik halaber nire iloba betiko galaraziko. Jon Muñoz

---

ahulketa *iz* ahultzea.

Beraz, periodikoki basamortuak hiriari armaz erasotzen dio, menperatu eta Estatu berri bat sortu; eta, arauzkotasun berdinarekin, nomada kaletartu burgestuaren **ahulketak** eta endekapenak jarraitzen du. -Damutu egingo haz noizpait, Antton, zatiketa eta **ahulketa** pausu honetaz. Joxe Azurmendi

---

ahulki *adlag* ahultasunez, ahulkeriaz.

Animatu zuen **ahulki**, eta esan zion ez negarrik egiteko, dena ondo aterako zela, ez izateko beldurrik. Irene Aldasoro

Zergatik jo duk hain **ahulki** atseginez moztu behar hukeen lepoa? Xabier Olarra

---

ahultasun **1** *iz* indar, kemen edo bizkortasun urritasuna; hortik datorren egoera. ik **ahulezia**; **ahuleria**.

bero kolpearen eraginak askotarikoak izan daitezke: zorabioak, **ahultasuna**, hotzikara, zurbiltasuna eta goragalea, baita koma egoeran sartzea ere. Berria - Harian

Hortik dator herrialde hauek nazioarteko finantza-egoera gorabeheren aurrean izaten duten **ahultasuna**. Koro Navarro

Uste zuen gehiegi ikasteak **ahultasuna** ekartzen duela, degeneraziora eramaten gaituela. Anjel Lertxundi

Taldearen gaitz nagusia atzealdean erakusten den **ahultasuna** da. Berria - Kirola

Bakoitzak gure gorputza, gure biologia eta gure istorioa daukagu; bakoitzak gure bizipenak, desioak, gustuak, nahiak, esperantzak; gure **ahultasunak**, ilusioak, asmoak. Luis Elberdin

Agian, **ahultasunak** berak eragin dio zorabioa. Antton Olano

Ahultasunak jota harrapatu nuen pneumonia. Berria - Euskal Herria

Badakizu zakarkeria izaten dela askotan **ahultasunak** ezkutatzeko modua. Koldo Izagirre

Han abiatu nintzen aldapan behera, koska handienetan belaunen **ahultasuna** nabaritzen nuela eta Angelori buruzko kontuak kabutan nerabiltzala. Anjel Lertxundi

Sofrimentuaren bidexkatik, denetan zoriontsuena den horretatik, gizakia etengabe aurrera doa, begiak bere **ahultasunean** jarriz, bere ezinean, bere itsuskerian, bere ezerezean. Joan Mari Lekuona

Sexuen **ahultasunaz** asko dakizu, Nire **ahultasunaz** asko dakit, eta besterenaz ere pixka bat. Jon Alonso

Diruen **ahultasunak**, aktibo batzuk erakargarriagoak egiten baditu ere, eragin negatiboa izaten du tokiko mozkinen balioan, nazioarteko diruetan. Koro Navarro

Nazio-estatuaren **ahultasuna** mito moduan sortzeak funtzio bat betetzen du: mundu mailako merkatu askearen sorkuntza, prozesu geldiezina eta saihestezina delako ilusioa edo utopia atxikitzea. Iñaki Heras

Kanpotik etorritako erasoei aurre egiteko **ahultasuna**. Berria - Euskal Herria

Behin, Sedanori gogoeta horrekin bat egiten nuela aitortzeko **ahultasuna** izan nuen; nire damurako, geroztik sarritan gogorarazten baitit ene puritanismoaz trufa egiteko. Ramon Saizarbitoria

Sendotasuna eta **ahultasuna** nahitaez mota bereko kontzeptuak direlako. Xabier Kintana

Ez indarraren baizik eta **ahultasunaren** ikurrak ziren. Iñaki Mendiguren

Argiaren **ahultasunak** ez zigun atzeneko partea ikusten uzten. Koro Navarro

Harritzekoa da bai ikustea nolako hutsaltasunez defendatzen diren horrelako eragina izango luketen ekimenak, inolako ñabardurarik gabe, haien sendotasunen eta **ahultasunen** analisi global eta estrategikoetan sakonean murgildu gabe. Iñaki Heras

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horrek guztiak eragina du Txernobil inguruko haurren osasunean: "Haurrek **ahultasun** handia dute". Berria - Harian

Bakoitzak ditu **bere** ahultasun txikiak. Xabier Olarra

Borroka armatuak, alderdi politiko abertzaleen **ahultasun** ideologikoa ordezkatzen duela. Itxaro Borda

Ahultasun demokratikoa eta giza eskubideen urraketa izan ziren mandatarien amaiera sustatzeko erabili ziren argudioak. Berria - Harian

Hiru krisi bizi izan ditu bata bestearen jarraian eta egungo **ahultasun** finantzieroak zalantzan jartzen du bere etorkizuna. Berria - Mundua

Odolzirkulazioaren diseinuak duen **ahultasun** harrigarri bat gogorarazten digu linfak. Irene Aldasoro

Baditugu grina asegaitzak, joera ilunak, **ahultasun** aitorrezinak, apetaldi inozoak, frustrazio ezkutuak, barne-aldaketa irrazionalak. Pako Aristi

Lulu **ahultasun** larrizko egoera batean geratu zen; haren organismoak ez zuen erantzuten behar besteko indarrez. Josu Zabaleta

Ipar Euskal Herriaren berezko **ahultasunak** eta XVI. mendeaz gero abian zetorren hondamendi ekonomikoak moteldu zuten, han ere, euskararen indarra. Koldo Zuazo

Kristandade Ortodoxoaren gainazal zirraragarriaren azpian hilzoriko **ahultasuna** aurki zezakeen. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ahultasun momentu bat izan zen seguruenik baina, nire harridurarako, nire etxeko bidea harturik genuen ohartu nintzenerako. Joxemari Iturralde

Ahultasun uneren batean emakume hauetako bat bizkarretik eraso eta -bere ahuldadeaz ere jakitun- bere bizitza gurearekin lot zezan eskatzeko tentazioan erortzea ez zen zaila. Harkaitz Cano

Nire adimenak argi zekusan ez zutela nahi nik atzera jotzerik, pott egiterik, **ahultasun** -maila bat izaterik leinuaren bizitzaren katean. Xabier Mendiguren Elizegi

Egoerak ez du hobera egiten, Errumanian Danubiok daukan 1.075 kilometroko luzeran hainbat dikek **ahultasun** keinuak agertzen baitituzte. Berria - Mundua

Mugimendu hori **ahultasun** zantzu gisa ikusi da. Berria - Ekonomia

Nire ustez, ez zuten kalte handiak eragitea gogoan, ez oraingoz, **ahultasun** itxura faltsua ematea eta aurrera segitzera gonbidatzea baizik. Agustin Otsoa

Naturak emakumea **ahultasun** egoera honetara kondenatu izanak argi eta garbi frogatzen du zein den naturaren asmoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zalantza oro adimen gainbeheraren adierazgarri dun gazteagan, gorputz **ahultasunaren** seinale zaharragan. Antton Olano

Aurki nagusitzen zaiela buru-eskasia, guztizko zango-**ahultasunarekin** batera. Juan Garzia

Latino Amerikako finantza-**ahultasun** iraunkorrak. Koro Navarro

Bere bekoki altu eta begi urdin garratzekin, akatsik gabe laino eta garden, giza **ahultasunaren** aurrean kopetilun. Anton Garikano

Onezia, barne-**ahultasun** eta norberarekiko errespetu falta larriaren marka zen. Itxaro Borda

Giza **ahultasunari** buruzko nolabaiteko gogoeta honek azken erresistentziak hautsiko lituzke, erresistentziarik gelditzen bazen bere jabetza intelektualaren atentatu zaurigarriaren berri izatean. Jon Alonso

5 ***ahultasun muskular*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Benetako **ahultasun muskularra**, muskulu eskeletikoaren hainbat gaixotasunen lehen mailako sintoma da, distrofia muskularra eta hanturazko miopatia barne. ETC-entziklopedia

Sintomarik nabarmenena **ahultasun muskularra** da, eta horrexegatik eguneroko keinu eta jarduerek ahalegin handia eskatzen diote erasandako gaixoari. ETC-prentsa

Ahultasun muskularrak jarraitzen badu, erlaxatzaile muskularren efektu erresiduala, lasaigarrien edo opiazeoen efektua antidotoen bidez itzuli behar da. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahultasun eta** (6); **ahultasun handia** (3); **ahultasun hori** (5); **ahultasunak eta** (4); **ahultasunaren seinale** (3); **bere ahultasun** (4); **bere ahultasunaren** (3); **eta ahultasun** (4); **eta ahultasunaren** (3)

---

ahultto *izond adkor* ahula.

Beste partida hau ere fitexko joan da, ikusi nahia ginuen Filipe batekin, eta doi bat nekatuskoa agertzen zaigun Itoiz **ahultto** batekin. Herria

---

ahultxago ik **ahulxe 2**.

---

ahultxo *izond adkor* ahula.

Egun luze hauetako eguzki ordu nasaien bero sapatsuen artean, estimatuko zuen eta eskertuko euri xarraxtada **ahultxoren** bat ere, xaguarena baino ttanttan pare bat gehiagorekin aukeran. Pello Zabala

---

ahultzaile *iz* ahultzen duena.

Beste batzuetan ikusiko dugu nola zailtasun beraren aurrean irtenbide ezberdinak dauden, bide **ahultzailea** nagusituz batzuetan, indartzailea, beste zenbaitetan. Lourdes Oñederra

Eta euskal literatura arrasatzen duen estiloa ez da horixe besterik: guziz Nietzschez bestekoa: altruista, **ahultzailea**, kristaua, protestantea, sozialista, faltsoa, kobardea... Patziku Perurena

---

ahultze *iz* ahul bihurtzea, indarra edo kemena urritzea.

Gizarte horiek jasaten dituzten aldaketa-prozesu bizkortuek kultur identitate ereduaren halako **ahultze** bat eragiten dute; horren emaitza mestizajea izaten da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Familien ekonomiaren **ahultze** horrekin "finantza sistema ere" ahul daitekeela gaineratu zuen. Berria - Ekonomia

Hizkuntzaren **ahultzea** eta harenganako xamurtasuna handitzea batera gertatu direla erakusten digu horrek. Xabier Mendiguren Elizegi

Estatu Batuen indarraren **ahultze** erlatiboaren adierazgarri dira, eta orobat dira, Kindlebergerren hitzetan, egonkortasun hegemonikozko aro baten amaiera. Koro Navarro

Hots-bilkura baten ordez beste hots-bilkura ahulago bat egiteari esaten zaio **ahultze** edo lenitio. Lourdes Oñederra

Asimilazioak, ordea, ez dira **ahultze** edo lenitioen gauzatze bakarrak. Lourdes Oñederra

Zertan datza ilargiaren eragina? Indar **ahultzearena** da ilbeheraren kontua. Pello Zabala

Abdula printzea erregearen gaixotasunaren **ahultze** prozesuarekin batera gauzak bere kabuz egiten hasi zenean baino ahulago dago orain. Berria - Harian

Dolarraren **ahultzea** eta Europako burtsen indartzea Asiako inbertsiogile handienen mugimenduarekin lotzen du zenbaitek. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahultze edo** (8); **ahultze edo lenitioak** (4); **ahultzea eta** (6); **ahultzea lortu** (4); **dolarraren ahultzea** (3); **eta ahultzea** (6); **eta ahultzea lortu** (3); **euroa ahultzea** (3); **ez ahultzea** (3)

---

ahulune *(ETCn **255**)* **1** *iz* ahulaldia. ik **ahulgune**.

Bi taldeok antzeko maila dute, eta **ahulune** bera: partida erabakigarrietan huts egiten dute. Berria - Kirola

Ahulune hori ondo baliatu zuen Utahk, partida irabazteko eta kanporaketetarako sailkatzeko aukerak bere horretan mantentzeko. Berria - Kirola

Batzuetan Moortjez hitz egiten hasten dira, eta horrek are gehiago amorratzen nau, horixe baita nire **ahulunea**, min egiten didana. Josu Zabaleta

Akuilua: gogo bizia; **ahulunea** : eskarmentu falta. Berria - Kirola

Ahulunea , ordea, aulkian dute, hasierako boskotea nekatzen denean ordezkoekin taldeak behera egiten duelako. Berria - Kirola

Garbi geratu zen kontzeptuaren erabilera komun horixe zela garapen iraunkorraren indargunea; anbiguotasuna, berriz, **ahulunea** . Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Dokumentu horrek mugimendu ekologisten kritika handiak jaso zituen, **ahulune** ugari zuelako. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hirurogei urtez, **ahulunerik** gabe, bizitzeko eskubideaz baliatu zen. Monika Etxebarria

Beharbada denbora gutiagoko lana izanen zen, gazteluko **ahuluneak** zein ziren erakutsi banie gure kapitainei. Aingeru Epaltza

Antolaketa falta izan da zalantzarik gabe Portugalgo futbolaren **ahulune** nagusia. Berria - Kirola

Saiatu ginen **ahuluneren** bat topatzen haren marmolezko aurpegian, txakalaldiren baten zantzua, pedal kolperen bat baldarra... Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ahulune nagusia (6); **eta ahulune** (3); **ez du ahulunerik** (3)

---

ahulxe

1 ***ahulxeago*** *izond/adlag*

Otañok Ugaitz Mugertza eta Patxi Mindegia kanporatu ditu; berak baino maila **ahulxeagoa** dutenak. Berria - Kirola

Aurreko sasoietan baino talde **ahulxeagoa** geneukala ematen zuen, baina begira lortu genuena", azaldu dio Berriari. Berria - Kirola

-Kaixo -haren ahotsa, aurreko egunetakoa bezain zoragarria bazen ere, apalxeagoa, **ahulxeagoa** iruditu zitzaidan, itzalduagoa, nolabait errateko. Alberto Ladron Arana

Batzuk onak dira eta **ahulxeagoekin** aritzea suertatu zitzaien. Berria - Kirola

Ibex-35 (%0,44) **ahulxeago** mugitu zen, baina 2.478 milioiren salerosketan Indra (%2,46) eta %1na pasa igo ziren Ferrovial, Inditex eta BBVA nabarmendu behar. Berria - Ekonomia

Ordekan jipoi handi samarra hartu zuten erne ibili ez zirenek, edo indarrez **ahulxeago** zeudenek, eta kilometro pasatxoko igoerak akabatu egin zituen asko. Berria - Kirola

---

ahulxko *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *izond adkor* ahula.

Zakarra da argia, **ahulxkoa** , gasaren usaina gogorarazten dit. ETC-literatura, saiakera

Teadonggang garagardo bat hartu dute tabernan, eta gero jolasgune batzuetara joan dira begiratu bat ematera -bolaleku, billar eta ping-pong gela zabalak, neon **ahulxkoek** argiztatuak-. ETC-literatura, saiakera

Ikusmolde bat ahalik eta hautetsi gehienek partekatua bilatzen du JJ Lasserrek Ipar Euskal Herriaren ezagupen instituzionalaren bidean; hiru erakunde hipotesia badarabiltza esku artean: " pays" egitura, **ahulxko** ikusten duena; Iparralde osoa bilduko lukeen polo metropolitanoa, eta Baterako bilkuretan aipatzen den " berezko lurraldea" edo collectivité de plein exercice. ETC-prentsa

---

ahuñe *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* antxumea.

Atzizkiari dagokionez, aldiz, "Bost bortz" eta "hortz" hitzetan ere aurkitzen duguna omen da, nahiz eta haren esanahia ez den argitu (ikus baita ere '**ahuñe** "/"ahuntz", "bera"/"beratz" 'bigun' eta, beharbada, "bele"/"belatz" bikoteak, halako atzizki bat bazela argiago erakuts lezaketenak). ETC-entziklopedia

---

ahuntx ik **ahuntz**.

---

ahuntz *(orobat **ahuntx** adkor ipar g.er.)* **1** *iz* abere xehea, ugaztun hausnarkaria, ilea motza eta latza, eta adarrak atzerantz okertuak dituena, haitz artean ongi ibiltzen dena *(Capra hircus)*.

Jaunak esan zion: - Ekarri txahal bat, **ahuntz** bat eta ahari bat, hiruna urtekoak, usapal bat eta usakume bat. Elizen arteko biblia

Ziklopeen uhartea basoz beterik dago, **ahuntz** asko ageri da bazter guztietan, eta inork ez ditu ehizatzen. Juan Kruz Igerabide

Artaldeko eme bat, arkumea nahiz **ahuntza** , eramango dio Jaunari bekatuaren barkamen-oparitzat. Elizen arteko biblia

Gizon oso aberatsa zen, hiru mila ardi eta mila **ahuntzen** jabe. Elizen arteko biblia

Ez duzue jango zezen, ardi edo **ahuntzen** gantzik. Elizen arteko biblia

Haren ondasunak berebizikoak zituan: hamabi artalde; zerri eta **ahuntzenak** , beste hainbeste. Juan Kruz Igerabide

Hogei urte hauetan zeurekin izan nauzu; inoiz ere ez dute umerik galdu, ez ardiek, ez **ahuntzek** . Ez dut jan zure aharirik bat ere. Elizen arteko biblia

Mendi garaiak **ahuntzentzat** dira, harkaitzak azkonarren gordeleku. Elizen arteko biblia

Ardiak eta **ahuntzak** jeizten hasi zen, banan-banan; bakoitzarena amaiturik, arkume edo antxume jaioberri bat jartzen zion azpian. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zeusen alaba ninfek eraginik, **ahuntz** basatiak nire lagunak jatera abiatu ziren. Juan Kruz Igerabide

Hark barrura sartu zituen esnea ematen zioten ardi eta **ahuntz** gizenak. Juan Kruz Igerabide

Ardi handiak hil zituzten, eta **ahuntz** ederrak eta zerri gizenak eta zezen bat. Juan Kruz Igerabide

Zoaz abere-taldera eta ekarri bi **ahuntz** guri, eta jaki goxoa prestatuko diot aitari. Elizen arteko biblia

Egun berean bereizi zituen Labanek aker marradun edo pintoak, **ahuntz** nabar edo pintoak eta ardi beltzak. Elizen arteko biblia

Egin duen bekatuaz jabetzean, **ahuntz** akasgabea eramango du barkamen-oparitzat. Elizen arteko biblia

Bigarren egunean, akasgabeko **ahuntz** bat eskainiko duzu barkamen-oparitzat, eta aldarearen garbikuntza-ohikunea egingo duzu, zezenarekin bezalaxe. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hauek zelaia bete gudari ziren; haiek, aldiz, bi **ahuntz** -talde ziruditen. Elizen arteko biblia

Gamelu, asto eta mando ugari hartu zuen tresneria eramateko, eta ezin zenbatu ahalako ardi -, idi - eta **ahuntz** -multzo haragitarako. Elizen arteko biblia

Ahuntz -larru bat ardoz beterik neraman. Juan Kruz Igerabide

Sutan **ahuntz** -sabel batzuk daude, koipez eta odolez beterik afaritarako utziak. Juan Kruz Igerabide

Mandatariek, sartzean, etxeko idoloa aurkitu zuten ohean, **ahuntz** -ilezko oihala burualdean zuela. Elizen arteko biblia

Beste aihertar batzuek ere izan dute xantza, hala nola Hervé Parachou Sarrigainekoak, bai eta Apairiko Menendez familiakoek bakotxak **ahuntx** erdi bat irabazi baitu. Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Basakatuak sartuko dira han, hontzek beteko dituzte etxeak, ostrukak biziko dira, mendi **ahuntzak** ibiliko saltoka. Elizen arteko biblia

5 *ahuntz azienda* *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Behi, ardi, zaldi eta **ahuntz azienda** lehiaketak antolatuko dituzte eta ez dira faltako talo-egileak eta txorizo, gazta eta bestelako saltzaileak. ETC-prentsa

Behi-azienden, ardi-azienden, **ahuntz-azienden**, txerri-azienden, zaldi-azienden eta hegaztien inguruko datuak erabili dituzte horretarako. ETC-prentsa

Zaldi, behi, asto eta **ahuntz aziendak** ugari eraman zituzten. ETC-prentsa

Paula Jauregi biologo eta biokimikariak behi eta **ahuntz azienden** immunitate sistema izan du aztergai Nafarroako Unibertsitate Publikoan defendatu berri duen doktore tesian. ETC-prentsa

Espainiako Elikadura Kodeak honako definizio hau ematen du haragiari edo okelari buruz: bobido, artabere, suido (basurdea), **ahuntz-azienda**, ekido eta kamelido osasuntsu eta baldintza higienikotan hildakoen gihar jangarrien atalak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oro har, debekaturik dago **ahuntz azienda** sartzea zuhaitz edo zuhaixka espeziak dituzten mendietan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ahuntz-aziendaz ahuntzainak arduratzen dira. ETC-entziklopedia

Behi, ardi, zaldi, txerri zerri eta **ahuntz azienda** nagusiak izan dira, mendi larratuan hazita. ETC-entziklopedia

Sukar aftosoa edo ahoeria behi, ardi, txerri eta **ahuntz azienden** gaitza da. ETC-entziklopedia

Abere-hazkuntzak ez du halako muntarik (ardi- eta **ahuntz-azienda**, gameluak) eta yemendarrak gero eta ardura handiago ari dira jartzen arrantza-baliabideen ustiapenean. ETC-entziklopedia

6 *ahuntz azpigorri* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Ahuntz azpigorria Euskal Herriko bertako ahuntz arraza bat da. ETC-entziklopedia

Horrela, betizua edo **ahuntz azpigorria** nahiko egoera latzean daude. ETC-prentsa

Aurreko urteetan 30etik gora animalia espezie ikusteko abagunea izan zuten hara bildu zirenek: Pirinioetako eta Enkarterrietako astoak, **ahuntz azpigorriak**, euskal txerriak, Baztango txerriak, ardi latxak, Akitaniako behi gorriak... ETC-prentsa

Luis Mari Alberdi aretxabaletarrak, beste lau esplotaziotako jabeekin batera, ardi latxak, **ahuntz azpigorriak**, pirenaika eta terreña arrazako behiak eta pottokak jarriko ditu ikusgai azokan. ETC-prentsa

Latxa arrazako ardi loteak, **ahuntz azpigorriak** eta euskal pottokak izango dira ikusgai plazan eta inguruan, eta baita artisau produktuak ere. ETC-prentsa

7 *ahuntz dorre* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Ahuntz dorrea solairu anitzeko apaingarri etxea da, Europako lorategi zorakeria baten gainean modelatua; horren adibide goiztiar bat Portugalen eraiki zen eta ardoaren munduan erabiltzen den umorearekin lotu izan da. ETC-entziklopedia

8 *ahuntz erdara*

Sorgin solasa, sorgin erdara, zapo erdara (zapaerdera) eta **ahuntz erdara** (auntz erdera, auntz berbetea) dira "hizkuntza" honen izenak, eta horretan aritzen denak esaldi bateko silaba guztiek p kontsonanteaz errepikatu behar ditu. Iñaki Arranz

Lehenbizikoaren kasuan "Harrikada futurista prepositiboa" izeneko testua eman dut jatorrizkoaren ordez, eta bigarren kasuan gurean erabili izan den zapo-erdara, **ahuntz-erdara** edo sorgin-solas deritzeten horietako batean moldatu dut testua. Xabier Olarra

9 *ahuntz esne*

Xaboibil napolitar: gariz, landare lotarazlez, **ahuntz esnez**, almendra mikatzez eta azukre zuriz egina. Patxi Ezkiaga

Ez ziren bakarrik urre koloreak, okreak, horailak, laranjak, gorriak berdeekin nahasiak, zeruaren azularen berezitasuna zen ere; usainak ere diferenteak ziren, landareen hostoen perfumea, lurra berarena, **ahuntz esnearena**... Ana Urkiza

-Zer ekarri zizuen, ba, horrela jartzeko: **ahuntz esnearekin** egindako gazta? Joxemari Urteaga

10 *ahuntz etxekotu* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Basahuntza: "Capra aegagrus". **Ahuntz etxekotuaren** arbasoa. ETC-entziklopedia

11 *ahuntz gazta*

Ondoko azpil batean, **ahuntz gaztak** ageri ziren, ume baten ukabilaren neurrikoak, gogorrak eta grisaxkak, akerrak, ahuntz taldea gidatzean, bide zidor harritsuen bihurguneetan biraka amilkatzen dituen harkoskorrak gogora zekartzatela. Karlos Zabala

Pasteurizatu gabeko gingko-ezti purua, ilar eta azalore lurrintsuak, **ahuntz-gazta** kategoriakoa, amuko lupi harrapatu berria. Edorta Agirre

Ruche jaunak bere baso ardoan bustitako udarearen eta Perrette puska ezin meheagotan mozten ari zen **ahuntz-gazta** txikiaren bitartean, hitza hartu zuen Jonathanek. Jon Muñoz

Bretoiak janaria dakar, urdaiazpikoa, patea, **ahuntz-gazta**, oilasko hotza. Felipe Juaristi

12 *ahuntz-hosto* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Atxaparra, sasiama, **ahuntz-hostoa** edo aker-aihena ("Lonicera") Caprifoliaceae familiako genero baten izen arrunta da, barnean 526 espezie, horietatik 108 onarturik, dituena. ETC-entziklopedia

Txoko batean, glorieta eder bat zegoen, udaberrian ezti usaina ematen zuten **ahuntz-hostoz** inguratua. ETC-literatura, saiakera

Huntz hostoa, aihen xuria, mihura eta beste **ahuntz hostoak**. ETC-literatura, saiakera

13 *ahuntz ile*

Estalki horri gainetik buztina jartzen zaio **ahuntz-ilearekin** nahastuta eta dena lodi emanda, suak ezin dezan inola ere makina hori kaltetu. Santiago Iruretagoiena

Harago, haien jaunengandik hurbil, emakume turkomanak ageri ziren, ileetatik dilindan **ahuntz ile** txirikordatuak zeramatzatela adats luzagarri, soinean mantarra zabalik... Karlos Zabala

Mandatariek, sartzean, etxeko idoloa aurkitu zuten ohean, **ahuntz-ilezko** oihala burualdean zuela. Elizen arteko biblia

14 *ahuntz larru*

Ezabatu egin zen ikuspena; geroztikako izu-ikarak, ordea, iraun egin zion Ruche jaunari, harik eta pozarren laztantzen ari zen **ahuntz-larru** pikortatuzko azal hura ukitzearen lasaitasunak ikara uxatu arte. Jon Muñoz

Arnoa okaztagarria da, **ahuntz larru** kerua dauka; olioa higuingarria da, ez dakit zeren usaina daukan; denda guztietako afixak eskaintzen dizu Vino y Aceite... Koldo Izagirre

Ahuntz-larru bat ardoz beterik neraman, Ismaron bere familiarekin batera bizirik utzi nuen Maronek eginiko opari ugarietatik hartua. Juan Kruz Igerabide

Jakinarazi nahi dizugu 1200 Kg. **ahuntz-larru** eta 500 Kg. tindatzeko liken jaso ditugula gure biltegietan, baldintza onartezinetan zoritxarrez, Sal-Rei ontzian egindako bidaia luzearengatik seguruen eta bidaiarako prestaketa desegokiarengatik. Bego Montorio

15 *ahuntz-praka* belar landare apaingarria, kolore biziko eta oso usain oneko loreak ematen dituena*(Cheiranthus sp.)*

Loreen artean bizi zen; arrosek, amañi liliek, **ahuntz prakek**, mugetek inguratzen zuten. Karlos Zabala

Atzean, bagoi narratsak ezusteko alaitasuna pizten zuen garraiatzen zituen lorontziak zirela eta: han, besteak beste, geranio arrosak eta gorriminak, krabelinak, **ahuntz-prakak**, arrosa goiztiarrak eta lobelia urdinak ikus zitezkeen nahasirik. Lopez de Arana

Ahuntz-prakaren zukua ona da atakeak jo eta lurrera jausitako dantzariak berpizteko, eta Salomonen zigiluaren zukua urratuetarako da ona. Julen Gabiria

Orduan denak dantzara joaten dira, Erregina denen aurretik eta, bere atzetik, Zerbitzari Jauna, pote txiki bi eramanez: bata **ahuntz-praka** zukuz beteta eta bestea Salomonen zigiluaren zukuz beteta. Julen Gabiria

16 *ahuntz-sahats* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Berriz atzera buelta eginez 9, 39 eta 11 zenbakidun espezietarantz abiatuko gara; **ahuntz sahatsa**, makala eta haltza, hurrenez hurren. ETC-prentsa

Ahuntz-sahatsa edo sahats hosto-beltza ("Salix caprea") Salicaceae familiako zuhaitza da, Europan eta erdialdeko eta mendebaldeko Asian jatorria duena. ETC-entziklopedia

17 *ahuntz-talde*

Basurde frango, azeri zonbait, ta **ahuntz talde** ederra. Herria

Ken niregandik begi horiek, zoratu egiten naute. Zure adats-kizkurrak **ahuntz-taldea** dirudi, Galaad mendian behera bilin-balan. Elizen arteko biblia

Ondoko azpil batean, ahuntz gaztak ageri ziren, ume baten ukabilaren neurrikoak, gogorrak eta grisaxkak, akerrak, **ahuntz taldea** gidatzean, bide zidor harritsuen bihurguneetan biraka amilkatzen dituen harkoskorrak gogora zekartzatela. Karlos Zabala

[...] nahi duena, hori, den bezala, horrela izanez gero; hara, koral-bitxiak eta soinekoa etorri ez balira, neronek ere ez nuen sinetsiko noski; kirten handitzat baitaukate herri honetan guztiek nire gizona, eta ez zaie buruan sartzen nolako gobernutarako gai izan litekeen bere **ahuntz-taldearen** gobernutik atera berria. Patxi Ezkiaga

Ahuntzak dabiltzanaz harritu zara? Bi **ahuntz-talde** mardul badabiltza inguru hauetan, Euskal Herri osoko ahuntzen paradisua dirudien honetan. Pello Zabala

Nonbait, espero zuen ni altxatu eta harrika hasiko nintzaiela jende haiei, **ahuntz-talde** bati bezala, guregandik uxatzearren. Joxe Austin Arrieta

18 *ahuntzak adarrak dituen aldera* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Inperioa jaisten ari da eta, esaerak dioenez, **ahuntzak adarrak dituen aldera** begira behar izatea, bestela bezala arituz. ETC-prentsa

19 *ahuntzak egotzi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

-Ama enteratzen bada, ez gero niri **ahuntzak egotzi**. ETC-literatura, saiakera

20 *ahuntzaren eztul*

Aurtengo Irrintzi lehiaketako irabazlea, **ahuntzaren eztula**, haren aldean. Hasier Etxeberria

21 *ahuntzaren gauerdiko eztul*

Honek egia handiak esan zizkien anaiei: Gerra bukatuta lana bilatzea ez zela **ahuntzaren gauerdiko eztula**, tarteren bat izango zutela anaiarentzat, kanpokoa hartzea baino hobe izango zela etxekoekin moldatzea... Alfer-alferrik. Xabier Etxabe

Ez baita **ahuntzaren gauerdiko eztula**! Jose Angel Irigaray

Hiruna liburu aski arrakastatsu zuten argitara emanik; eta hori, poesiaz ari garelarik, ez da **ahuntzaren gauerdiko eztula**. Josetxo Azkona

"Ezinbesteko gutxienekoak» horiek direla uste dutenen artean ere ez da **ahuntzaren gauerdiko eztula** izango gutxieneko horiek nola gauzatu hitzartzea. Berria - Euskal Herria

Izan ere erronka ez zen **ahuntzaren gauerdiko eztula**: espektro ia osoa, demokristauetatik ezkerreko nazionalistetara, bildu eta kontrentrazio gobernua eratu Yves Leterme bozen irabazlearen inguruan. Berria - Mundua

Hamar urte geroago oraindik maila horretan aritzea ez da **ahuntzaren gauerdiko eztula**, batez ere bera baita gidari bakarra azken hamabi denboraldietan urtero gutxienez garaipen bat lortu duena. Berria - Kirola

Ipuina baino "zerbait gehiago" egiteko asmoa agertzen duenak merezi du **ahuntzaren gauerdiko eztulak** baino arreta gehixeago... J.M. Olaizola "Txiliku"

Zure rezolitis hori ere ez da, bada, **ahuntzaren gauerdiko eztula**... Joan Mari Irigoien

Kanoiek ahal zezaketenak eta **ahuntzaren gauerdiko eztulak** berdin-berdin balio zutelakoan. Edorta Jimenez

22 *gauerdiko ahuntzaren eztul*

Bi onenen artean sartzea, ordea, ez da **gauerdiko ahuntzaren eztula** izango. Berria - Kirola

23 *piriniar ahuntz* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Euskal Herrian bertako bi ahuntz arraza daude: ahuntz azpigorria eta **piriniar ahuntza**. Haiez gain, kanpoko beste arrazetako etxeko ahuntzak daude ere esne zein haragitarako. ETC-entziklopedia

Ahuntz azpigorrien kasuan, **piriniar ahuntzekin** konparatuz gero abere oso antzekoak dira, nahiz eta adituek bereizten dituzten eta euskal erakundeek arraza ezberdintzat hartzen dituzten. ETC-entziklopedia

24 *pirinioetako ahuntz* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Pirinioetako ahuntza garai batean Euskal Herriko Pirinioetako haranetan zein Pirinio osoan barrena (Aragoi, Okzitania, Katalunia eta Andorra) hartzen duen antzinako ahuntz arraza bat da. ETC-entziklopedia

Hamar ordu egin zituen bizirik klonatutako **Pirinioetako ahuntzak**. ETC-prentsa

25 *piriniotar ahuntz* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ahuntz azpigorrien kasuan, **piriniotar ahuntzekin** konparatuz gero abere oso antzekoak dira, nahiz eta adituek bereizten dituzten eta euskal erakundeek arraza ezberdintzat hartzen dituzten. ETC-entziklopedia

26 *zazpi ahuntzak*

Zazpi ahuntzak edo Hartza handia konstelazioaren sortzearen mitoa du oinarri obrak, Thierry Malandain Biarritz baleteko zuzendari eta koreografoak dioenez. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ahuntz bat** (15); **ahuntz baten** (7); **ahuntz batzuk** (5); **ahuntz eta** (9); **ahuntz gasna** (5); **ahuntz gazta** (3); **ahuntz hilea** (4); **ahuntz hilezko** (3); **ahuntz larru** (7); **ahuntz larruak** (4); **ahuntz larruz** (3); **ahuntz praka** (3); **ahuntz talde** (4); **ahuntz taldea** (3); **ahuntza bezala** (3); **ahuntzak eta** (3); **ahuntzak zaintzen** (3); **ahuntzaren gainean** (3); **ahuntzaren gauerdiko** (30); **ahuntzaren gauerdiko eztula** (28); **ahuntzaren urtea** (3); **ahuntzen bat** (3); **ahuntzik ez** (3); **ardi eta ahuntz** (5); **ardi eta ahuntzen** (4); **ardiak eta ahuntzak** (3); **baita ahuntzaren** (4); **baita ahuntzaren gauerdiko** (4); **behi eta ahuntz** (3); **bere ahuntz** (3); **bi ahuntz** (5); **da ahuntzaren** (12); **da ahuntzaren gauerdiko** (11); **edo ahuntz** (5); **eta ahuntz** (24); **eta ahuntz gasna** (3); **eta ahuntzak** (15); **eta ahuntzaren** (3); **eta ahuntzen** (7); **ez baita ahuntzaren** (4); **ez da ahuntzaren** (12); **hartan ahuntz** (3)

---

ahuntzadar *iz* zuhaixka handia, hosto erorkorrak eta lore mordo horiak dituena*(Pistacia terebinthus)*.

Bibliako itzulpenetan, haritza esateko, batzuetan, **ahuntzadar** edo terebinto itzultzen du, Mambreko Artadikoan bezala; eta beste batzuetan, abaritza, txaparro edo karraska, izen horiek denak baitituzte zuhaitz hain garaiak ez diren hauek. Pello Zabala

---

ahuntzain *iz* ahuntzak zaintzen dituen pertsona.

Hamabigarren atalburuan **ahuntzain** batek Don Kijoterekin zeudenei esan ziena kontatzen zaigu. Patxi Ezkiaga

Nori bururatu behar zitzaion, uhartetako gobernadore izatera heldu behar zuenik **ahuntzain** batek? Patxi Ezkiaga

Ordena honetakoa nauzue ni, **ahuntzain** anaiok; eskerrik asko bai, niri eta nire ezkutariari eman diguzuen sarrera on eta oparoagatik. Patxi Ezkiaga

Zaharrarekin **ahuntzain** gelditu zen. Pablo Sastre

Abere gainera igo ziren eta azkar-azkar ibili ziren, etxarteren batera iritsi nahirik ilundu baino lehen; baina gorde zitzaien eguzkia eta baita desira zutena iristeko esperantza ere; **ahuntzain**-txabola batzuen ondoan zeuden eta, hantxe gaua pasatzea erabaki zuten. Patxi Ezkiaga

---

ahuntzama *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* umeak dituen ahuntza.

Antxume gosetiek nekearen nekeaz etzan den **ahuntzama** abailduaren titia xurgatzen duten modu berean xurgatu diolako herioak barrena. ETC-literatura, saiakera

---

ahuntzburudun *izond* ahuntzaren burua duena.

Egiptoko pintore eta irudigileek Panen irudia **ahuntzburudun** eta akerhankadun marrazten eta zizelatzen dute, baina, zergatik horrela marrazten duten esatea ez zait atsegin.

Patziku Perurena

---

ahunzki *(corpusean ez dago; ETCn 7 agerraldi)* *iz* ahuntzaren haragia.

Behikiei, txerrikiei, ardikiei eta **ahunzkiei** askotan beharrezkoa da osasuntsuak eta estetikoki aproposak ez diren atalak kentzea: hezurrak, gantza, zainak, tendoiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ontzia fruituz eta **ahunzkiz** hornitzen lagundu eta gero, ontzira igo, eta Ingalaterrarako bidaia egin zuen Selkirk-ek. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

ahur 1 *iz* eskuaren barnealdea, eskumuturretik hatzetaraino hedatzen dena; eskuarki, barnealdeak sakongune bat eratzen duenean.

Eskua luzatu, **ahurra** ireki eta giltza erakutsi dit. Pako Aristi

Baldwinek **ahurra** txirrinaren gainean ezarri zuen. Lopez de Arana

Zuria zen altxaturik zekarren eskua, **ahurra** aurrerantz, bake-seinale gisa. Agustin Otsoa

Orbain bana geratu zitzaidan eskuin eskuko gainalde nahiz **ahurrean**. Xabier Mendiguren Elizegi

Eguzkia adoratzen zuen, begiak hetsirik, geldi-geldia, besoak zabalik, bi eskuen **ahurrak** eguzkiari buruz irekitzen zituela. Aurelia Arkotxa

Avigdor amona mantangorri bati so geratu zitzaion, nola mugitzen zen bere eskuaren **ahurrean**. Koro Navarro

Eguzkia adoratzen zuen, begiak hetsirik, geldi-geldia, besoak zabalik, bi eskuen **ahurrak** eguzkiari buruz irekitzen zituela. Aurelia Arkotxa

Charly ene ondoan zegoen, bere ezker eskuko **ahurraren** gainean hosto pikatu idorrak tabako gorriarekin nahasten ari. Aingeru Epaltza

Eskuak buelta eman du, **ahurra** mahaiaren gainean, zabal-zabalik jarrita, bizkarra eskaintzen dit orain. Monika Etxebarria

Lepoa luzaturik, arretaz begiratu zion ezkerreko eskuari: bularrean pausaturik zeukan, **ahurra** oso zabala zen, eta hatzak lodiak. Jose Morales

Ahurra neskaren titi buruekin jostatzera uzten nuela, erraten nion, ez nuela Baionara itzultzeko gogorik. Itxaro Borda

Meheak eta estuak ziren hatzak, lehen bezain zabalak **ahurrak**, baina zimurrek beren ubideak eginak zituzten eskuotan, urte iraganek aise ibiltzeko moduan. Felipe Juaristi

Garai batean, artzain bakarti bihurtzeko gogoa neukan, baina nekazaritzako ametsak zangopilatu nituen aski laster, aitzurraren giderrak **ahurrak** odoletan babatzen zizkidalako. Itxaro Borda

Oroitu naiz Semenario handian kantu gregorianoak gidatzen nituela, koruaren erdian nengoela xutik, esku ezkerraren **ahurrean** liburua neukala eta eskuinaz noten pikoak, errateko maneran, markatzen nituela. Piarres Aintziart

Ahurrean hartu dut: astuna da, leuna. Iban Zaldua

Euliak burrunda egiten zuen eta kili-kiliak eragiten zizkion **ahurrean**. Lopez de Arana

Nabala **ahurrean** ikusi ninduela, izuaren izuaz bezala, Mairosek urrats bat atzera egin zuen. Itxaro Borda

Gora begiratu nuen eta goiko habeak **ahurrean** harrapatuko gintuen esku erraldoiaren hatzak iruditu zitzaizkidan. Joseba Sarrionandia

Ahurrean kokatua den pilota bezala, denbora. Piarres Aintziart

Bere buruari galdetu zion zer ote ziren **ahurren** azpian zituen bi bularrak. Ibon Uribarri

Elurra zen, bai, elur arrunta, eskuaren **ahurrean** berehala urtzen ziren elur malutak. Harkaitz Cano

Nori bururatzen zaio!" Niregana jiratu eta kopetan jo ninduen eskuaren **ahurraz**. Bernardo Atxaga

Begitartea bi **ahurrez** torratu nuen amets latzetik iratzartzen banintza bezala. Itxaro Borda

Zauri sakon samar bat daukat ezker-**ahurrean**. Harkaitz Cano

Tinpano atezuak **ahurrekin** burrunbatzen dira eta inguruan zinbalo konkaboak entzuten. Xabier Amuriza

Historia hori **ahurretik** ganbilera, barnetik kanpora (ukimenetik ikusmenera), egoera psikologiko "huts" batetik "betetasunaren" atzematerako pasabide gisa harturik. Josu Zabaleta

Ahur bat, zabala bezain leuna. Piarres Aintziart

Musu bozkariozkoez bezain errespetuzkoez estali zion esku hotza, eta gero **ahur** gainean jarri zion bere buru astun epela. Mirentxu Larrañaga

· Idoiak atera ninduen hartatik, eta haizemaile baten **ahurra** bezala zabaldu zidan bizitza. Juan Kruz Igerabide

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bizarginaren **ahur** bigunaren gainean eta kapela luzatu zion mutil beltzaren **ahur** gogorraren gainean eskupeko bana ipini zuen eta astiro igo zen marmolezko eskaileretan gora. Lopez de Arana

Eskukada bat gatz hartu zuen eskuin eskuaz Joanesek; usaindu egin zuen; ezker **ahurraren** gainera erortzen utzi zituen gatz-pikorrak goitik behera: gatz erlojua. Felipe Juaristi

Aitak eskuineko **ahurra** mugitu zuen. Itxaro Borda

Ezkerreko **ahurra** pottottara eramanik, bere larru leun eta garbia baino ez zuen haztatu. Itxaro Borda

3 (izenondo gisa)

Guztien artean lurrean forma **ahurra** egiten duen hiri antzekoa aipatuko nuke. Berria - Kultura

4 ***esku ahur*** *(orobat* ***eskuahur*** *g.er.)*

Atzapar AB-ren txantxetako izen taxonomikoak, *Palma hominis*, "gizakiaren **esku-ahurra"** esan nahi du. **Esku ahurra** ireki zuenean, lehenago ez zeuden zenbait marra zimur zituela iruditu zitzaion. Xabier Olarra

Esku ahurra zabaltzen du Katek orduan, eta hutsune horretan ezer ez egon arren, hutsune hori Askatasun Anderearen buruko koroa ez izan arren, hutsune hori minerala atera berri duten meatze zuloa ez izan arren, zakurrak muturra sartzen du Katen **esku ahurrean**. Harkaitz Cano

Eskua kutsatu zuen Beotibarreko aldageletan eta garaua irten zitzaion **esku ahurrean**. Berria - Kirola

Munduko ekaitzetatik babestu behar dugu argi efimero hori, kandelaren argia **esku-ahurrarekin** bezala. Anjel Lertxundi

Esku ahurrera irauli zuen haren edukia. Aingeru Epaltza

Seko gelditu zen bazterreko eserlekuan gizon bat ikusi zuenean, berokirik gabe, **esku ahurrak** biribildu eta haietan putz eginez. Koro Navarro

Esku-ahurrak altxatu eta ezer ez dakienaren keinu bat marrazten du aurpegian. "Ni errugabea naiz" eta "niri ez ezer esan" arteko keinu bat. Antton Olano

Euri zaparrada hasi zen orduantxe bertan eta euriak urradurak freskatu zizkion apur bat, batez ere **esku ahurrak** gorantz zabaldu zituenean. **Esku-ahurraz**, orria garbitu zuen Ruche jaunak, gomaren hondarrak aldaratzeko. Joseba Sarrionandia

Norak ez zuen lore-sorta hartzeko aukerarik izan, aita, zaldien ipurmasailak **esku-ahurraz** jorik, oihuka hasi baitzen mihi zakarrez: [...]. Anjel Lertxundi

Gogoan izango duzunez, zure **esku-ahurraren** lerro honen norabidearekin lotu nuen zure bizitzan gertatutako... aldaketa sakon hura. Iban Zaldua

Adak eskua erretiratu zuen, eta hatz-puntak lehortu zituen **esku-ahurraren** kontra. Anjel Lertxundi

Etsita hagoenean har ezak giderrik gabeko koilara hau **esku ahurrean** eta beha ezak hondora luzaz, heure burua ikusiko duk beti buruz behera, oso ona duk nork bere burua buruz behera edukitzea. Koldo Izagirre

Gogoan dut nola atera nituen, banan-banan, eta nire **esku-ahurrean** jarri nituen. Mirentxu Larrañaga

Musuzapiaren ertzaz zintz egin, eta musuzapian bildutako paper-mutur bat gorde nuen nire **esku-ahurrean**. Anjel Lertxundi

Hartzailea, berriz, entzule, ikusle nahiz irakurlea, informazio-egarriz kanillako ura **esku-ahurrean** hartu eta edatera doana. Joxerra Garzia

Tanta horiek beiraduran marrazten zituzten arrastoetan iragarpen ezkutua aurkitzen saiatu zen Mentxu, **esku ahurreko** zimurretan eta kafe hondakinetan egin ohi den bezala. Josu Landa

Kiromantiko baten moduan pasatu zituen hatz-puntak nebaren **esku-ahurreko** erreten txikietatik. Anjel Lertxundi

Hortzak karraskatuz, ministroa ohean agondu eta eseri egin zen, aurpegia **esku-ahurretan** bermaturik: gau lazgarri hartan ezingo zuen lorik egin. Jose Morales

Ohetik jaiki eta gero, **esku ahurretan** ura bildu eta aurpegia busti eta gero, amak aulki gainean utzitako arropak jantzi eta gero, amak prestaturiko kafesnea edan eta gero bere amari begira geratu zen. Joseba Sarrionandia

Odol-arrasto lehorrak zerizkion ahotik eta **esku-ahurretatik**. Mirentxu Larrañaga

Odol beroaren kolore gorria gero eta biziagoa zen **esku-ahurretik** hatz-muturretara doan bidean. Ibon Uribarri

Rachelek irribarre egin zuen, eta kolpetxoak eman zizkidan soinburuan **esku-ahurrez**, burutik egina nengoela uste izango balu bezala, eta zutik jarri zen. Oskar Arana

Bitxi iruditu zitzaidan ikustea parte hartzaile guztiek -Guebokinder ere barne- kokotsa **esku ahur** gainean bermatzen zutela. Jon Alonso

5 (izenondo eta izenlagunekin)

Aurpegia **esku-ahur** gizen lurrineztatuekin estalirik, argitasun ikaragarriz irudikatu zuen nola biharamun goizean ohetik jaikiko zen, ezer jakin gabe, gero kafea edango zuen, ezer jakin gabe, gero bebarruan jantziko zen. Jose Morales

Beste bi inurri eman nizkion, hatz-muturren maitasun hain humanoz, hatz-muturretatik **esku ahur** zabalera, bi inurri, bi harri koxkor ozeanoaren erdi-erdira. Karlos Linazasoro

Mariok elastikotik heldu, eta **esku ahur** irekiaz di-da zaplatu du Natxo. Patxi Iturritegi

Imajinatzen nituen ondorioz, egunean bietan, olaren hegaspeko taula luzeko aire zorrotzean, gasna bakoitzaren inguratzen, gazitzen eta **esku-ahur** lerdenaz garbitzen, maiatz bukaerako haize karroindatuak lagun. Itxaro Borda

Esku ahur balakari eta musu ibiltariaz apaintzearen bide aldiak mugatu eta finkatuz beztitzen lagundu ninduen. Itxaro Borda

Ezkerreko **esku-ahurrari** begiratu diot, eta marra berria ikusi dut, guztiz orbainduta, marra zaharraren gainean. Iban Zaldua

6 ***funtzio ahur*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Positiboa bada "f" **funtzio ahurra** da. ETC-entziklopedia

7 ***poliedro ahur*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Geometrian, **poliedro ahurra** (edo poliedro konkaboa) aurpegi bat, edozein, daukan plano batek ondokoa ez duen poliedroaren beste aurpegiren bat ebakitzen duenean aplikatzen den terminoa da. ETC-entziklopedia

8 ***poligono ahur*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Geometrian eta fisikan **poligono ahurra** erabiltzen da konkaboa denaren esateko. ETC-literatura, saiakera

Izar-poligonoa izar itxurako poligono ganbil **poligono ahurra** da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahurra ireki (3); **ahurrak erakutsi** (3); **ahurrak gora** (3); **ahurraren gainean** (3); **ahurrean eta** (3); **ahurrean hartu** (5); **ahurrean jarri** (7); **ahurrean jarri eta** (3); **ahurren artean** (3); **eskbu ahurra** (22); **esku ahur** (17); **esku ahurrak** (31); **esku ahurrak erakutsi** (3); **esku ahurrarekin** (9); **esku ahurraren** (5); **esku ahurrari** (3); **esku ahurraz** (13); **esku ahurrean** (46); **esku ahurrean hartu** (3); **esku ahurrean jarri** (5); **esku ahurrekin** (5); **esku ahurren** (4); **esku ahurretako** (4); **esku ahurretan** (15); **esku ahurretik** (4); **esku ahurrez** (5); **eskuaren ahurraz** (3); **eskuaren ahurrean** (3); **eta ahurraz** (3); **eta esku ahur** (3); **eta esku ahurrak** (6); **eta esku ahurraz** (3); **eta esku ahurrean** (10); **eta esku ahurretako** (3); **ezker ahurrean** (3); **nire esku ahurrean** (3)

---

ahurdun *izond* barnealdea ahurra duena.

Begien bistan da azkenak, ezezko atributu horien bidez, ia-ia heldua dela, itsasontzia nolakoa izan daitekeen hautematera, eta nolabait gauza hori zurezko gorputz bat, **ahurduna**, luzea eta zurezko zati ugariz osatua eta baiezko atributuen bidez irudikatzen zaion pertsonaren mailan aurkituko dela. Xabier Kintana

---

ahuri *iz* ulua, uhuria.

Aditzen da, gauen mendetatik datorren **ahuri** ilun baten gisan, "Salkindariaaa!". Patziku Perurena

---

ahurka **1** *adlag* bi ahurrak bilduz.

Bi eskuekin aurpegia estali zuen, ura **ahurka** edaten duenaren tankeran. Joxean Agirre

2 ***ahurka erein*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Zerealak eta bazkak **ahurka ereiten** ziren, patatak txuloka, lekaleak ilaran edo txuloka. ETC-literatura, saiakera

---

ahurkada **1** *iz* ahurrarekin jotako kolpea.

Estalkia ostera itxi eta **ahurkada** jo zion gainean. Josu Landa

2 ahurrean edo ahurraz har daitekeen kopurua.

Beste batzuk isilik egoten dira, emandako **ahurkada** arroza jan arte. Gotzon Garate

---

ahurtara *iz ipar* eskukada.

Ez, ez dugu **ahurtara** bat haurrekin salbatuko pilota, heien lagun guziak beste nunbait badira. Herria

Janbattitt Hiriart-Urrutyhazpandar erakasle ezagutuak **ahurtara** bat gogoeta hel-arazi dauku karrika, kiroldegi, eskola eta holakoeri gaurko egunean emaiten diren izenez. Herria

Huna egun **ahurtara** bat gogoeta Mixel Berhocoirigoin ELB sindikatekoaren eskutik. Herria

Zoin pollit izanen zen lore **ahurtara** baten eskaintzea: "Loretxu, hona lore zenbait zuretzat...". Janbattitt Dirassar

Eskuartean hartu zuen **ahurtara** bete ikusteko ea ez zuen kokoak jo. Juan Garzia

---

ahurtaraka *adlag ipar* eskukadaka.

Ostiak egiten ditu bi sosetan truk biziaren irabazteko eta ostia porroskak banatzen ditu **ahurtaraka** katiximaren ondotik, hortzekin krask eta krask haurrak loriatzen baitira. Michel Oronoz

Eta Lur eta Gauekoren esku begirazaleek bakea isurtzen dute, **ahurtaraka**, nasaiki, bi mutikoen gorputzen gainera. Michel Oronoz

Halaz, behin goseak hilik etxe batera hurbildu zen gordeka eta zakurtegian agerian zeuden kroketak **ahurtaraka** ahoratu zituen. Itxaro Borda

Sarri aratsaldean, Gernikaratzean gure lehen urratsa izanen da zure orroitzapenez, zuk hain maitatu duzun ekai bizietarik **ahurtara** bat Hazparne aldeko lur eta landare hosto bat) Gernikako haitzaren oinetarat eremaitea. Herria

Egun haatik, huna arrunt beste gai batez **ahurtara** bat oharpen eta gogoeta. Herria

ahurtaraño *iz adkor* ahurtara txikia.

Horra **ahurtaraño** bat arrazoin eta baditake, untsa ikertuz, beste batzu ere kausitzen ahal litazkeen. Herria

---

ahurtasun *iz* konkaboa izatearen nolakotasuna.

Hala sartu zen Cyril Tourner gau zimeriarraren **ahurtasun** zabalean. Juan Garzia

---

ahurtiar *iz* Ahurtiko biztanlea.

Bainan halere, gora Izturitze, Makea, Larresoro, Ursu-Mendi, Haitzekoak, Eskuz Esku, Urruñarrak, **Ahurtiar** eta lekuko soinuak xaramelatu dituzten irisartar, uztariztar eta donapaleutar soinulari zintzoak. Herria

---

ahusabide *ipar iz* jostatzeko bidea.

Batzuentzat mendia lanbide, bertzeentzat **ahusabide**, denek inguramena beren gisa zaitzen, zoin desberdinki haatik! Herria

---

ahusagai *ipar iz* jostatzeko gaia.

Agorrileko **ahusagaiak**. Herria

Ahusagai gau hori Irulegiko "denen etxea" berotu gelan iraganen da. Herria

---

ahusagailu *ipar iz* jostailua, jostatzeko gauza. ik **abusagailu**.

Kirola, kultura, erakusketa, janaldi, **ahusagailu**... izanen da denetarik denentzat. Herria

Bakantza denborako zernahi **ahusagailu** badira haurrentzat. Herria

Hor baduzu, nahikoa, **ahusagailu** eta denbora betegailu. Herria

Eman dezala orai fruitu trinketak, gazteen eta zaharren **ahusagailu** eta herri pollit horren batasun egile. Herria

Usaian ainitz jende jiten da **ahusagailu** hortarat. Herria

Gisa hortan gure lana hobeki antolatzen ahal dugu: gogoeta biltzar, **ahusagailu**, langile girixtino talde (J.O.C., Jeunesse Ouvrière Chrétienne) eta bertze. Michel Oronoz

Helburua du tokiko informazioaren zabaltzea, bai-eta ere kultur ekitaldi, hezkuntza programaketa eta **ahusagailuen** berri emaitea. Herria

Eta hori dute frogatu hain xuxen joanden asteburuan han gaindi iragan diren hiru egunetako besta alaiek, xoko moko guzietan zernahi **ahusagailu** mota ba omen zaudelarik, dantza, musika, kantu, joko eta bertze. Herria

---

ahusagarri *izond/iz ipar* jostagarria.

Jendearen **ahusagarri**, buruz-burukako partida hau jokatu dute berezitasun hortako xapeldun ohiak eta goiti ari den gazteak. Herria

Holako partidak ere behar, partida haundien biharamunetan, astelehenaren markatzeko, **ahusagarri** eta trenpu onaren beiratzeko, gazte horiek. Herria

---

ahusamendu *iz ipar* jostatzea.

Hilabete huntan, gure herrian, izanen dituzte **ahusamendu** asko: pilota, kantu eder, dantza, indar joko eta abar. Herria

Iragan ebiakoitz aratsaldean 150 bat haur eta gazte, mutiko eta neska, beztitu dira denbora zaharretako maneran erakusteko zer ziren lehengo ihauteriako josteta eta **ahusamenduak**. Herria

Bertzelako graziarekin iraganen dire xabalerat agertuko diren libertimendu, **ahusamendu**, jaiak, hilabete hortan. Herria

Oren bat eterdi **ahusamendu** udatiar eta besterentzat, tanto pollit askorekin, bakotxak bere haineko jokoarekin eta eskuzarta alde pollita ondarrean, hori izan dugu joan den asteleheneko plata aro onarekin eta berriz ere jiteko gostua bertzalde. Herria

Deskantsuan, iraganen dire zernahi **ahusamendu**, pilota, bertsu, kantu, ahantzi gabe orroituz parropia lauzkatzea dela gure eginbidea. Herria

Egun guziz non edo non badire **ahusamendu** berriak, eta ahalaz nahi dire argazkitan finkatu, gogoa arintzeko negu ilun egunetan. Herria

---

ahusarazi, ahusaraz(i), ahusarazten du *ad* jostarazi.

Baina Idiart naski kolpaturik haste hartan, horra nork duen jokatu jendearen **ahusarazteko**. Herria

---

ahusatu, ahusa(tu), ahusatzen **1** da *ad ipar* jostatu, dibertitu.

Kartak, ttanttoak eta bertze zonbait joko hor izanen ditugu **ahusatzeko**. Herria

Lau pilotari on horiek egin izan dute partida hau baino beroagorik baina **ahusatu** dute asteleheneko jendea beren dohainen parte on bat erakutsiz. Herria

Izanen da hor **ahusatzeko** parada ederra. Herria

Ahusatzeko izanen dira kartak eta bertze zonbait joko; ondotik, aratsaldeko askaria. Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Etxola gutitan ikusten dena, hantxe dauka liburu lerrotto bat mahi buruan Pettanek, udako egun **ahusatuagoetan** irakurtzeko. Herria

---

ahuspekatu *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* , ahuspeka(tu), ahuspekatzen du *ad* ahuspeztu.

Behatz dardaratiaz ferekatu zituen atzikusgailuan zintzilik zaramatzan eta omiasaindukari **ahuspekatzen** ziren giza-eskeleto zurgatuak. ETC-literatura, saiakera

---

ahuspez **1** *adlag* ahoz behera. ik **ahozpez**.

Ahuspez jauziko dira uretara, eta gerizpean hartuko ditu loak. Joseba Sarrionandia

Ahuspez erori zen Abran, eta Jainkoak esan zion: [...]. Jose Antonio Mujika

Orduan, anai Pazifiko **ahuspez** erori zitzaion oinetara, besoak gurutzatuta zituela. Askoren artean

Anaia hura bere fraide lagunarekin **ahuspez** jarri zen otoitzean eta han zeuden guztiak ere otoitz egitera gonbidatu zituen. Askoren artean

Ez zara haien aurrean **ahuspez** jarriko eta ez dituzu gurtuko, ni Jauna, zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaiz. Jose Antonio Mujika

2 ***ahuspezko etzanera*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Urangaren hitzetan,? egotearen koordenatuak; egoteko formak: ahoz gorako etzanera, **ahuspezko etzanera** ... eta nik asmatutakoa, eskuzko etzanera. ETC-prentsa

Hauek dira hiru posizioak: **ahuspezko etzaneran**, zutik, belauniko. Proba honetan, emakumezkoek eta gizonezkoek hartzen dute parte. ETC-entziklopedia

---

ahuspezka *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *adlag* ahuspez.

Nola gurtzen zuten eguzkia, eta nola, espainiarrek, beren ezpata, zaldi eta kaskoekin etorri, eta dena gupida gabe eta urte gutiren buruan **ahuspezka** jarri zuten. ETC-literatura, saiakera

Ungi garbitu ta auspezka ematen da gupela, ura isur dezan 'ongi garbitu eta **ahuspezka** jartzen da upela, ura isur dezan'. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

ahuspeztu *(ETCn **150** agerraldi; orobat **ahozpeztu** ETCn **264** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ahuspeztu** agertzen da)*, ahuspez(tu), ahuspezten **1** da ad. ahuspez jarri. ik **ahozpeztu**.

Zure oinetan **ahuspezten** naiz barkazioa eskuratzeko, eta finitzen dut gutun sobera luze hau. Jon Muñoz

Sultanak begi arranpaloekin begiratu zien Aladini eta haren lagunosteari, eta mutilari bere aurrean **ahuspeztea** debekatu ziolarik, besarkatzera joan zitzaion. Patxi Zubizarreta

-Eta nire aitaren oinetan **ahuspezten** banaiz dena ahantz dezan erregutzeko? Fernando Rey

Abrahanen morroia, hitz horiek entzutean, lurrean **ahuspeztu** zen, Jaunaren aurrean. Jose Antonio Mujika

Barruti batzuetan, sinetsidazue, bada gazterik liburuen aurrean **ahuspeztu** eta orriei barbaroki muinka ekiten dienik; ez baitira gai, ordea, letra bakar bati ere tankerarik emateko. Juan Garzia

2 (era burutua izenondo gisa)

Hosto batzuek ez dute irauten ahal, ezin dute halako itxitura gogorra pairatu, orrialdeari itsatsiak gelditzen dira, ezin dute libratu irakurri dituzten letretarik, haiengana **ahuspeztuak** bezala bizi nahi dute. Koldo Izagirre

Hara eraman zuten batean, aldare aurrean erruki eske **ahuspeztuta** zegoela, ikusmena eskuratu zuen bat-batean eta gidaririk gabe itzuli zen etxera. Askoren artean

---

ahutz *iz pl* ahoaren atzealdea.

---

ahuzkara

Katuen edo zakurren sexugrinari, *uhara, ohara* esan izan diogu guk Goizuetan, behar bada (zakur) *orara* zaharretik beste guzietara zabaldua; ahuntzenari edo ardienari berriz, ***ahuzkara***, *arkara,* hau da, ardi< artara. Patziku Perurena

---

ai **1** *interj* atsekabea, oinazea eta kidekoak adierazteko erabiltzen den hitza..

Ai, zilarreria! Jokin Urain

Nire emazteak, **ai**, nire emazteak autoz jo zuen gizon bat; hankak txikitu zizkion. Karlos Linazasoro

Zuzen begiratu zion, pentsatzen ari zena begietan irakurtzeko moduan: "**Ai**, Justo!". Joxemari Urteaga

Ai, Ibarra, hire burusoil hori musukatzeko gogoa diat! Alberto Ladron Arana

Ai, lagunok, arretaz oldoztuko balitz honek zer esan nahi duen. Joan Mari Lekuona

Ai!, edozein huskeriagatik bat-batean munduaren azkena genuen gainean gure aitaren haserrealdi izugarri haiek zirela eta. Pello Lizarralde

-Ai, seme, ea hiesa harrapatzen duzun! - berehala sartu zen tartean ama. Jon Muñoz

-Ai, hau kolpe latza! Joanes Urkixo

Ai, nire nobela gajoa. Harkaitz Cano

Ai ama! Gau hartan morroiari begiak biltzea kosta egin zitzaion, baina, azkenean, bildu zituen. Martin Anso

Ai, Polixene, Polixene...! Juan Luis Zabala

Ai, inuxenteak! Joxerra Garzia

Sukaldeko ontzien artean / botila hutsak agerian; / **Ai**! Edan didaten bizitza / berreskura ahal baneza! Pako Aristi

- **Ai** ama, ari dira Amaia! Iñigo Aranbarri

Ai! zenbat gurutze bidearen ertzean! J.M. Olaizola "Txiliku"

Ai, gaur ez dizut bazkaltzen utziko hemen, etxe guztia txapelokerrez betea daukagu, dinamitaren bila ari dira, izugarria da. Koldo Izagirre

Makilak enfasi gutxiagorekin jotzen zuen lurra, eta arnasa, estua, **ai** intziri-hots batean kanporatua, kondentsatu egiten zitzaion neguko airean. Irene Aldasoro

Ai, aintzat hartu izan banitu Yvanen esanak. Joxan Elosegi

2 (izen gisa) penazko esapidea.

Eta han izan ziren nigar-purpuilak eta **aiak**, dolorezko dolorea eta tribulamendua...! Joan Mari Irigoien

3 ***ai ene***

Ai ene, Anna Grigorieakizu nola larritu naizen hori guztia entzun dudanean! Jose Morales

Eta orduan, **ai ene**, txoratzeko moduko pentsamendu-zurrunbiloak etortzen zitzaizkidan: ama, turkiarrarekin moztu eta gero, ni lana bilatzera eramateko aitzakiatan beste zerbait nahiko ote zukeen nigandik. Fernando Rey

-Ai ene, zure bila dabiltza toki guztietan. Koro Navarro

Ai ene, loreontzia hutsik izango da; nire bizi-hats txikiak ere, urtean behin inguratzen zintuen arnasak, huts egingo du!- **Ai ene**, ze polita den! -esan zuen Edek-. Eduardo Matauko

-Ai ene! -esan zuen Fredek. **-Ai ene**, hobe harrapatu izan bagenu! -esan zuen Fudgek garratz-. Iñaki Mendiguren

Ai ene! Nork libratuko gaitu hebertar horien Jainko indartsuaren eskuetatik? Elizen arteko biblia

Nik esan nuen: **"Ai ene**, galdua naiz! Ezpain kutsatuak baititut, eta kutsaturiko ezpainak dituen herrian bizi bainaiz. Bekatari izanik, Errege eta Jaun ahalguztiduna ikusi baitut neure begiz". Elizen arteko biblia

-Ai ene! Agustin Otsoa

Eugeni: **Ai ene**! Jainko maitea! Nolako zapindua! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ai ene, zer ekintza, hain trumoi-orro ozenez iragartzen dena? Juan Garzia

-Ai ene, baztertu bedi hemendik, nire jaun hori; ez beza holakorik egin -Teresak erantzun-. Patxi Ezkiaga

-Ai ene, hiltzen bada! Agustin Otsoa

Baina, **ai ene**, ez da irautea ezkontza guztien patua. Oskar Arana

Itxaronaldiak luze egiten baitzitzaizkion, eta azkenean gaizki pentsatzen hasten baitzen, Sergiori zerbait gertatu ote zitzaion beldurrez, istripuren bat-edo, **ai ene**, **ai ene**... Joan Mari Irigoien

4 ***aiez egon*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Tirano baten uztarripean **aiez dagoen** herri bat, ahul deituko duzu baldin azkenean jazarri eta kateak apurtzen baditu? ETC-literatura, saiakera

5 ***oi, ai***

Oi, **ai**, eta birritan oi. Oskar Arana

Ni neu eta nire lagunak gazte-gazte ginen garaiak joan ziren, eta nire eta lagunen seme-alabak dira orain gazte, sasoiko, indartsu: **"oi**, **ai**, oi, hogei bat urteko gazte loretsuak". Joxerra Garzia

Oi, **ai**, guztion damua: xaldiko gaixoa atzendua. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ai ai (25); **ai ai ai** (13); **ai ama** (16); **ai bestela** (3); **ai ene** (165); **ai eta** (12); **ai eta ai** (4); **ai eta oi** (3); **ai ez** (5); **ai frantzisko** (3); **ai gure** (3); **ai hiri** (5); **ai hiri handia** (3); **ai hiria** (6); **ai hiriari** (7); **ai jainko** (4); **ai jainko jauna** (3); **ai jainkoak** (3); **ai jauna** (4); **ai nauj** (3); **ai nire** (4); **ai poeta** (3); **ai ta** (12); **ai ximon** (4); **ai ze** (3); **ai zela** (3); **ai zenbat** (3); **ai zer** (23); **ai zer plazera** (5); **ai zer plazerra** (5); **ai zu** (10); **ai zuek** (31)

---

aiaiaika *adlag* "aiaiai" esanez.

Ematzea batzuetan zutitzen zen eta esku-ahurrak gerrian pausatzen zituen **aiaiaika**. Itxaro Borda

---

aiaiaka *adlag* "aiaia" esanez.

Gizon aberatsarekin amodioa egiten duen goiz apurretan, emazte hori **aiaiaka** etortzen zaigu lanera, bizkarretik minez, begitartea zimurdikatua eta soinean behera dena oinaze: ziatika garaiza, flebitisa beharbada, non ez den fibroma! Itxaro Borda

---

aiar *izlag* Aiakoa, Aiari dagokiona; Aiako biztanlea.

Koldo Mitxelenara egin nuen azken bisitan, Aiako kontu hartaz dokumentatzera joan nintzenean, Joxe Mari Lertxundi **aiar** idazlearen liburuak begiratzen egon nintzen. Xabier Etxabe

Ernestina de Champourcin poesia sarian, berriz, Patxi Lopez Tejada **aiarra** nagusitu da, Materiaren egitura poemarioarekin. Berria - Kultura

Berarekin ikasitakoa da Zialtzeta, Balentin Aldalur **aiarra**. Koldo Izagirre

Aiarrak lehen aldiz irabazi du Igeldoko Harria txapelketa. Berria - Kirola

Aiarrak 29 jasoaldi egin zituen zilindroarekin eta 20 jasoaldi kuboarekin; guztira, 49 jasoaldi. Berria - Kirola

Gure etxean bolada luzea egin zian **aiarrak** automobilik ez zuen garaian, dantza-entsaioak ostiraletan berandu bukatzen genituenean. Xabier Etxabe

---

aiatar ik **aiar**.

---

aiatola *(orobat **aiatollah** g.er.) iz* islamiar xiiten burua.

Zortzi urteko kartzelaldia ezarri zioten, duela bi urte, *Inja Chah Nist* nobelan (Leku hau ez da lubaki bat) Saied Ali Khamenei **aiatolari** egindako ustezko difamazioen ondorioz. Berria - Kultura

Khamenei dago haren alboan, **aiatolah** handiaren ondorengoa, Lider Gorena izendapena daukana. Jon Arretxe

Irakian beti mota beretik, atentaduak eta hilketak, 20 hil bederen berriz ere, eta heietarik bat Ali Sistani **aiatollah** nagusiaren bigarrena, bi lagunekin otoitzaldirat zoalarik joa. Herria

---

aiatolah ik **aiatola**.

---

aiatoleslam

Bestalde, Saied Ahmed Khatami **aiatoleslam**-ak atzo ohartarazi zuen Irango Armadak bukatu berri dituen maniobra militarretan erakutsitako arma berriak "Iranen ahalmen militarraren zati bat besterik ez" direla. Berria - Mundua

---

aiba *interj* harridura adierazten duen hitza.

Aiba! Marisorgina esan du Txemik, eta Garbiñe isilik geratzen dela ikusita, argibidea erantsi du. Berria - Kultura

Aiba, esan zuen Larraitzek. Pablo Sastre

Aiba; zer egin duk hor? Pablo Sastre

Aiba la hostia... Pako Aristi

---

aibadios *interj* harridura adierazten duen hitza.

Aibadios, hi! Hori ez al da... Hori ez al da Antxon, hire...? Fernando Morillo

-Aibadios, Alex? Aspaldiko! Zer moduz zabiltza! Fernando Morillo

-Sartzen naz artean, hasten naz neure kainaberea joten eta **aibadios**! "Zer dok hori? Xabier Amuriza

---

aibala *interj* harridura adierazten duen hitza.

Apostoluen zerrendan, Harkaitz eta Asier 12en artean entzunez gero, harritu egingo ginateke, eta **Aibala**! -esango genuke-. Pello Zabala

Goizeko irratiko emanaldietan, Euskadi Irratian edo lehentxeago Radio Euskadin Florencio Torrelledóri entzutean, leihora jaiki denik ere ezagutzen dut, **"Aibala**! Pello Zabala

Aibala !, esan duzu honezkero, hau guztia jakin eta, gehiago asmatu ez? Aixkiria, lehengo kontu berdintsura eramango zaitut. Pello Zabala

Aibala , Arantzazun, Gasteizen eta Iruñean frexko baino eguzkia daukate, eta besteotan lainoa eta xirimiria, aizue! Pello Zabala

---

aibalaostia 1 interj askor harridura adierazten duen hitza.

-Aibalaostia , hi! -bota zuen Alexek, eta eskutik kendu zion dirua, mugimendu azkar batez-. Fernando Morillo

-Aibalaostia . Fernando Morillo

2 ***aiba la hostia*** ik **aiba**.

---

aida 1 *interj* abelgorriei aurrera eragiteko esaten zaien hitza.

'Aida !' esango zuen akuiludunak, idi beilegiek mugimendu nagi eta astunak egingo zituzten itsasbazterreko bidetik behera Ondarroarantz, eta Lekeitiorantz, eta Gernikarantz. Joseba Sarrionandia

"Aida !, Diana, **aida** !" Orain, nork debekaturik ez duenez, gustuko dituen emakumeen izenak jartzen dizkie behiei: Ane, Claudia, Nicole, Madonna... Patxi Iturritegi

2 ***aida batean***

-Ospa zure lekura **aida batean** ! Itziar Otegi

Hirugarren egunean, gauza pilo bat gertatu zaigu, marrazki liburuetako orriak **aida batean** pasatzean bezala. Javi Cillero

Doris Algreen, mintzairen nahaste-borraste hartaz jabeturik, orkestraren zuzendariarengana joan eta ohartarazi zion, haserre biziz egin ere, **aida batean** amaitu behar zuela demasia harekin. Josetxo Azkona

Aida batean hartu zuten setiatzaileek hiria. Jon Muñoz

---

aidaka *adlag* “aida” esanez.

Eguzkien odolustea erakusten du arratsaldeak, lo hartu dute harritzako argiek, eta taldeari etengabe **aidaka** , unaia badoa, unaia badoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

aidanean ik **agi 1**.

---

aidanez ik **agi 2**.

---

aide ik **aire**.

---

aiduru 1 *adlag* zain; begira. ik **goait**.

Kartzelako atean bi ordu **aiduru** , oren bateko bisean-bisekoarentzat. Itxaro Borda

Hantxe daude, harkaitzetan, beren kailua iruten, **aiduru** . Koldo Izagirre

Arratsaldean hiru ordu handi eman zituen baratzean, **aiduru** , zurezko aulkian, hesira begira. Gotzon Garate

Une batez Mitxelena **aiduru** egon zen, bere hitzek nolako eragina ote zuten nigan. Alberto Ladron Arana

Bizpahiru ilunabar bitxi haietan, **aiduru** nengoelarik, kolore askotako espainiar armada-zainak ikusi nituen, harresiaren gaineko beren erronda-bidean kanoien artetik ibiltari. Txillardegi

Bada, 1973an hasi ziren haien ondorengoak hitzarmen haietakoren bat bete zedin eskatzen, urteak eta urteak **aiduru** egon ondoren. Pello Salaburu

Orduan dugu anitzek onartu ez genuela euskaldunek nehongo faboreen **aiduru** egoiterik gure nazioari bere izariko estatuaren orkoia moldatzeko, eta euskaldunoi zegokigula, Txillardegik dioen bezala, Euskal Herria Helburu hartzea. Piarres Xarriton

Handik laster, haurrak eta gizonak, loiroan **aiduru** zeudela, taldean, Nakok atea jotzen zuen: [...]. Itxaro Borda

Edo zerbitzatua izateko ordu erdi baino gehiago **aiduru** egon behar zen postara zuzentzeko adibidez. Itxaro Borda

Gau zarratuan irtena zenean bezala piztua, diosala harrera ongi etorria, hemen naukazu **aiduru** , atxamarta tinko baten estatxa. Koldo Izagirre

Gandiagak jainkoa du **aiduru** , baina ez du haren izenik aipatu ere egiten. Pako Aristi

"Berehala noakizu" edo esango lukeen keinu bat egin dit begiradaz, ikusi nauela, arratsaldeonak eman eta espektazioz **aiduru** ninduela adieraztearekin batera. Pako Aristi

Erretore etxera iritsi zenean, Peio **aiduru** aurkitu zuen, berantetsirik. Elena Touyarou

-Jendea **aiduru** da. Elena Touyarou

Gero isildu egin zen tanpez, eta **aiduru** gelditu. Koldo Izagirre

Zoriaren esku, labirinto batean dabil espiritua ahalegin etsian, mezu-zaparrada gaitz baten pean, zeinu baten xerka, begi-kliska baten zain, ustekabeko loturaren baten **aiduru** . Juan Garzia

2 (-en atzizkiaren eskuinean)

-Zeren **aiduru** ? Elena Touyarou

Ate itxian jo ala, bertzerik gabe, asotsa atereaz neure burua seinalatu, erreklamatuko ninduen unearen **aiduru** , horra zer gelditzen zitzaidan erabakizun. Aingeru Epaltza

Zerbait gertatuko da: Basse-de-Vieille karrikako itzaletan zerbait dago nire **aiduru** , hantxe, karrika lasai horren izkinan hasiko da nire bizitza. Monika Etxebarria

Hi ikusteko bozkarioaren **aiduru** , adiskide amoltsua, hiri izkiriatzeko plazerrera emana naun; eta higan pentsaturik ematzen dinat higandik urrun egoteak sortzen didan tristura. Jon Muñoz

Guztiok mahai inguruan geunden, aitonaren **aiduru** zutik, noiz eta hura jaun administratzailearekin iritsi baitzen. Joan Mari Irigoien

Aurpegiko adierazpena ez zitzaion aldatu; hurbiltzen ari zen bitartean ongi aztertu zuen, haren **aiduru** izan balitz bezala, eta jarlekuan zehe batez urrundu zen, hari toki baten uzteko gisan. Elena Touyarou

Urte hartan etsaminetako egitarauetan zegoen Godoten **aiduru** antzerkia ikasleekin nola aztertzen zuen esplikatzen zion: [...]. Itxaro Borda

Baserriko giroa bitxia zen: ematen zuen guztiak azken jujamenduaren **aiduru** zirela. Itxaro Borda

Baga handiaren **aiduru** jarraitzen genuen, eta enbatarik ez inondik. Koldo Izagirre

Gehienak antzaz Espainiara eta gero Ingalaterrara joateko paperen **aiduru** zeuden. Itxaro Borda

Hortik aurrera Maddik artega jardun zuen, bere aldiaren **aiduru** . Itxaro Borda

Aterpe guzietan bezala, kaier haundi bat badago mahaian, erromesen oharpen, iritzi edo hitz laburren **aiduru** . Piarres Aintziart

3 (adizlagun gisa)

Eta hausten da soka batzuetan, eta erortzen eta amiltzen gara zuloan beheiti, non herensugeak eta munstroak ditugun **aiduru** -izua eta bekaitza, herra eta zorigaitza-,

ahutzak zabal eta hortzak zorrotz. Joan Mari Irigoien

-Ez, semea **aiduru** dut -ihardetsi zion, baina gizonaren urratsetarik abiatu zen Port-Neufeko gozoki eta txokolate dendaraino. Itxaro Borda

Neskak **aiduru** zeuzkaten, herrokan. Itxaro Borda

4 *aiduru egon*

Hots, Behereartako geltokia aurki prestatu eta irekiko zelakoan, beti **aiduru egoten** ginen, eta berantetsita ere bai batzuetan. Txillardegi

Jarri zarete, beraz, eta helikopteroaren **aiduru zaudete**. Xabier Montoia

Orduan dugu anitzek onartu ez genuela euskaldunek nehongo faboreen **aiduru egoiterik** gure nazioari bere izariko estatuaren orkoia moldatzeko, eta euskaldunoi zegokigula, Txillardegik dioen bezala, Euskal Herria Helburu hartzea. Piarres Xarriton

Ez zuten luzaz **aiduru egon** beharrik ukan. Elena Touyarou

Eguraldia hobetuko ote zen **aiduru zegoen** bitartean, langileak bazkaltzera irteten hasi ziren, ordubata baino beranduago zen, elkarrizketa luzexka izan zen. Jon Alonso

Bada segur bazterretan horien **aiduru dagoenik**! Herria

Mutiko azkarra da, ingelesezko hitz bakan batzuk dakizkiela-eta besteak liluratzen ditu, eta AEBetako soldaduak noiz etorriko **aiduru dago**. Berria - Kultura

Ene **aiduru egona** zen, iduriz. Koldo Izagirre

Etxera bidean gehienak, autobusaren **aiduru egoten** ziren lerro-lerro, egun osoko neke pisua begitartean. Xabier Montoia

Egia esan, beti bere zain egon izan bagina bezala izan zen, eta, neurri batean bederen, hala zen, hau da, haren **aiduru egonak** ginen betidanik, euskara paradisuko hizkuntza zela esaten zuten garaietatik, bederen, eta nork daki lehenagotik ere ez ote geunden zain. Jon Alonso

Bada, 1973an hasi ziren haien ondorengoak hitzarmen haietakoren bat bete zedin eskatzen, urteak eta urteak **aiduru egon** ondoren. Pello Salaburu

Ez nekien zer egin: ihes abia ala merkatu-tratuaren bukaeraren **aiduru egon**. Itxaro Borda

5 *aiduru gelditu*

Gero isildu egin zen tanpez, eta **aiduru gelditu**. Koldo Izagirre

Raimundo Silvak bat-batean bekokia zimurtu zuen eta bestearen esanaren **aiduru gelditu**, baina Costak nobelara itzuli zuen bere arreta, orriak pasatzen zituen definitzen ez zekien zerbaiten bila ariko bailitzan. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aiduru egon (8); **aiduru egoten** (3); **aiduru zegoela** (6); **aiduru zegoen** (3); **aiduru zeuden** (3); **baten aiduru** (5); **ene aiduru** (4); **gure aiduru** (3); **haren aiduru** (5); **nire aiduru** (3); **zen aiduru** (3)

---

aidurutsu *izond* aiduru dagoena.

Anaren begitarte **aidurutsua** esperoan nuen erredakzioko zoko-zokoan. Aingeru Epaltza

---

aiegiar *izlag/iz* Aiegikoa, Aiegiri dagokiona; Aiegiko biztanlea.

2005 urtean Espainiako Txapelketan parte hartu ondoren, 2006an, hasiera batean, Munduko Txapelketako gidari izango da Ion Garrido **aiegiarra**. Berria - Kirola

---

aiei *interj* atsekabea, oinazea edo harridura adierazteko hitza. ik **ai**.

O! Ai! Ene! **Aiei**! Helas! Doluko auhenak, alarauak, arrangura adierazpen urragarriak, negargarriak: hildakoentzat atsekabegarria. Iñaki Arranz

Aiei, nola zaude zu, begia baituzu hutsean josten, eta aire mamigabearekin baitzara solastatzen? Juan Garzia

---

aieika *adlag* “ai, ei” esaka.

Ai, ei, haiei **aieika** Oier! Iñaki Arranz

---

aieka *iz* aldea.

Eta, horretaz gain, Harry Blountek, trenaren ezker aldean eserita, ezkerreko **aieka** horri baizik begiratu ez eta lurralde gora-beheratsua ikusi zuen, zelai zabalez osatutako eskuineko **aiekari** begiratzeko lana hartu gabe, eta beste ohartxo hau gehitu zuen koadernoan ziurtasun britainiarrez: [...]. Karlos Zabala

Beste **aieka** batzuetako jendea hasi zen iristen, errepika etengabeak erakarrita. Juan Garzia

Gure aurretik pasatu ziren denak eta, bidearen bi **aiekak** hartuta, milizianoa eta kamioia zeuden aldera abiatu ziren zuhurtzia handiz. Inazio Mujika Iraola

Gure **aiekan** esaten den moduan, ubiladak egiten ezkutatu nintzen jende artean. Koldo Izagirre

Lagunak ez zitzaizkidan bilduko hankatik edo samatik helduta elkarri behin eta berriz pulunpa eragin gabe -sanjuanberde egitea, gure **aiekan**-. Koldo Izagirre

Jar gaitezen hanka-arte erantzira begira, larru bizira eta gorrira, pentsatuz ezen beharbada gaitzeko **aiekatik** hobeki ezagut litekeela zein nolakoa den, onetik, zuritik eta jantzitik baino. Iñaki Segurola

Zabedieroko kanpamentuko soldadu sail bat harekin batera etorri eta plazaren bi **aieketan** hedatu ziren lerroz lerro, jostaketa lekua baino utzi ez zutela erdialdean. Karlos Zabala

Miatu genuen ingurune guztia, errepidearen bi **aieketan** berrehun bat metro; obispoa tiro-festak izututa, nora edo hara ihesi joatea zitekeena baitzen. Inazio Mujika Iraola

---

aienarazi, aienaraz(i), aienarazten du *ad* aienatzera behartu.

ETAren anagramako sugea ere horregatik **aienarazi** izanen du Lizarrak? Patziku Perurena

Banekien Marrok, han harrapatuz gero, pasada on bat emango zidala, onenean; izan ere, ziur nengoen Marro gauza zela norbait **aienarazteko**, gehiago ez agertzeko moduan; halako irudi beltza genuen auzoko haurrok pertsonaia beldurgarri hartaz. Juan Kruz Igerabide

Oihuek eta garrasiek zakurra izitu, amorrarazi edo **aienarazten** duten bezala, hitz beratxek erakarri. Gotzon Garate

---

aienatu, aiena, aienatzen **1** da *ad* ihes eginez urrundu; ezkutatu, desagertu.

Irudi hori **aienatu** egiten da eskua harengana luzatzen dudan bakoitzean, edo hizketan hasten natzaion bakoitzean. Juan Kruz Igerabide

Gure hegazkinaren itzala morrena eta glaziarren gainean: behin eta berriro barneratzen da sakanetan, eta halako bakoitzean beti uste duzu galdu eta **aienatu** egin dela, baina berriro hantxe azaltzen zaizu hurrengo harkaitz-labarrari itsatsia. Joxe Austin Arrieta

Zaita orduantxe **aienatu** zen eta baita Husnia ere, senarra aurretik zuela. Patxi Zubizarreta

Bere lagunen ahots lausoak bat-batean sartu ziren pasabidean; gero, kalean behera **aienatu** ziren. Lopez de Arana

Oihuak, urrats-hotsak eta apatxak hirian barrena **aienatu** ziren. Agustin Otsoa

Estreinako aldia nuen halako elurte baten erdian hegaldatzen nintzena: hegazkinaren gurpilek pista zuria ukitzeari utzi orduko **aienatu** ziren begien bistatik zoru gaineko argi horiak, haien kliskada-arrastorik ez, eta geroxeago Manhattanen arrastorik ere ez, hainbesteko elurra ari zuen. Joxe Austin Arrieta

Ilunpea **aienatzen** ari zen. Agustin Otsoa

Esperantza **aienatu** egiten duk. Agustin Otsoa

Eulia eguzki-argian **aienatu** zen, une batez diz-diz egin eta gero. Lopez de Arana

Poztasuna, baina, berehala **aienatu** zitzaion, izan ere nahi gabe bere eskuari begiraturik, ohartu egin baitzen bere esku lakarraren eta gizonaren esku finaren arteko aldeaz. Patxi Zubizarreta

Amikuzetik **aienatua**, Guisetarren soldatapean ibilia omen zen Etxeto, Frantziako erresuman. Aingeru Epaltza

· Amets **aienatu** berria etorri zitzaidan akordura. Aingeru Epaltza

Haien adiskidantza ederra **aienatzen** ari zen; hitz bat nahikoa izan zen irribarrearen azpian hortz zorrotzak erakusteko. Karlos Zabala

2 (adizlagunekin)

Poztasuna, baina, berehala **aienatu** zitzaion. Patxi Zubizarreta

Ez ziren, beraz, haiengandik arras **aienatuak** izanen horienganako herra eta gorrotoa. Aingeru Epaltza

Ximurraren ondora itzultzean, nahasmendua ez zitzaidan arruntik **aienatua**, ezta nire gogoeten joan-etorria azkartu ere. Aingeru Epaltza

Ordurako detektibeak **aienatuak** ziren, ziplo **aienatu** ere. Lopez de Arana

Tupustean **aienatu** zen, lasterka sartu zen urdaitegian. Karlos Zabala

Begi aitzinean lainoa bat-batean **aienatzeak** istant bateko xoradura eragin zidan. Aingeru Epaltza

3 du *ad* ihes eragin, desagerrarazi, uxatu.

Burutapen gaiztoa berehalako batean **aienatu** zuen geroago eta hazitzenago zihoakidan grinak. Aingeru Epaltza

Goizeko haizeak azoka esnatu berrien hats bortitzak eta ustel usainak **aienatzen** zituen. Karlos Zabala

Ez zenuen ahantziko haur hori zure eskariz hartu nuela neure gomendio, eta ez dut zure baimena baizik igurikitzen hura **aienatzeko**. Jon Muñoz

Jakintsu batek errana du ezen beldurrak **aienatzeko** aski izaten dela ia beti beldur horien kausa sakontzea. Jon Muñoz

Izenburuak **aienatu** zidan irribarrea: "Autopsiaren behin betiko emaitzek are korapilotsuago bihurtu dute ugaldeko emakumearen kasua". Aingeru Epaltza

Gazteek ez dute jakiten zurikeria kilikagarriei uko egiten: baina bere maitearen ele bat bakarra aski dute, ikusten duzunez, lilura hori **aienatzeko**; beraz arras zoriontsua izateko ez zaizu haren maitea izatea baizik falta. Jon Muñoz

Segurtamenak zalantzak **aienatu** zituen. Patxi Zubizarreta

4 (era burutua izenondo gisa)

Nire oraingo nahiz lehengo bizitegietako korridoreetan bildutako sudurrekoen ondorio **aienatu** gabeei orban berria berretuta, ene bisaia Quasimodoren edertasuna bereganatzen ari zela egin nuen neure baitan. Aingeru Epaltza

5 ***aienatuxe*** aienatu samarra.

Ordainean, **aienatuxea** zitzaidan, bigarrenez gau berean, Charlyrekin bildutako karga orotarikoaren laino-hondar pisua. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aienatu behar (5); **aienatu da** (4); **aienatu egin** (14); **aienatu egin zen** (7); **aienatu egiten** (11); **aienatu egiten da** (3); **aienatu egiten ziren** (3); **aienatu zen** (25); **aienatu zen arte** (3); **aienatu ziren** (13); **aienatu zituen** (4); **aienatu zitzaion** (3); **aienatu zuen** (3); **aienatua zen** (4); **aienatuak ziren** (6); **aienatzen ari** (10); **aienatzen ari zen** (6); **aienatzen dira** (4); **aienatzen hasi** (3); **aienatzen zen** (8); **batean aienatu** (3); **berehala aienatu** (4); **eta aienatu** (12); **eta aienatu egin** (5); **eta aienatu zen** (3); **guztiak aienatu** (6); **guztiak aienatu ziren** (3); **hori aienatu** (3); **hori aienatu egiten** (3)

---

aienatzaile *izond* aienatzen duena.

Eta ez duzu orobat sumatu ezen plazerrak desira elkarren hurbilarazlea baldin badu aurretik, plazerraren ondoren nahitaez datorrela higuin elkarren **aienatzailea**? Jon Muñoz

---

aienatze *iz* ihes eginez urruntzea ezkutatzea, desagertzea.

Larunbat-igandeetan bakarrik sufritu nuen lagunaren **aienatzea**. Aingeru Epaltza

Tatariarren inbasioak eragindako **aienatzeak** ez zuen hustu Kamsk herrixka ordu arte. Hiriko erdigunean nintzen; alokairuen goititze taigabearen eta bizilagun gero eta zaharragoen **aienatze** naturalaren bortxaz, gero eta city itxura handiagoko bazterrak. Karlos Zabala

---

aiene **1** *iz* deitorea, auhena. ik **ai**.

Hitzik ez, oihurik ez, **aienerik** ez. Sonia Gonzalez

Negarrari eman zion gero segidan, Nikolasek ongi ezagutzen zuen **aienea** jaurtiz: "Lasciatemi morire, lasciatemi morire". Felipe Juaristi

Istripuetan larri zaurituen **aiene**, madarikazio eta hiltzeko desioz botatako oihu asko entzuten nuelako, egunez eta gauez, nire pabiloi hartan. Anjel Lertxundi

Geroxago, Silveira, dena **aiene** eta kurrinka. Daniel Landart

Hildakoen negar eta **aieneek** airea bete dute. Felipe Juaristi

Luze gabe, neskatilaren **aieneak** negar bihurtu dira, belaun hautseztatuetako puntu gorriei begira. Patxi Iturritegi

Gazteluko patioa jendez eta kabalez mukuru zegoen, batzuek irrintzi eta bertzeek **aiene**, hemen Jainkoari birao eta han Jesukristori alabantza. Aingeru Epaltza

Hamidak emana zuen ezkontzeko hitza eta, nahigabean **aiene** bat atera zitzaiolarik, Aluanek galdegin zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Aiene bat entzuten zen, edo garaipenezko oihu bat. Julen Gabiria

Andreari oraindik ez diogu esan, azkenaldi honetan urduri samar dagoelako eta ez ditugulako berriro haren negarrak eta **aieneak** entzun nahi. Josu Zabaleta

Gaur ere garratz kexatzen naiz, nekez eusten diet neure **aieneei**. Elizen arteko biblia

Egin eraso, elamdarrok! Setiatu hiria, mediarrok! Jainkoak isilarazten ditu **aieneak** !-Niri berdin zait, zera ez bada behintzat... -hasi zen esaten Harry, baina **aiene** batez bukatu zuen. orain Myrtleren **aiene** eta intzirien oihartzuna entzuten zuten komunetako paretetan zehar. Elizen arteko biblia

Amaitutakoan oihu urragarriak, oihu zaurigarriak, oihu lehergarriak, entzun ziren alemanen alde horretatik zetozenak, hil-lantuak gehiago, bizidunen **aieneak** baino. Felipe Juaristi

Haren irribarre barea eta baregarria -amabirjina bat ematen zuela esan zionean, egia-egiatan zioen-, haren **aieneak** eta hasperenak. Fernando Morillo

Zabaldu egin zuen nire aurrean eta bi aldeetatik zegoen idatzia: bertan erostak, intziriak eta **aieneak** zeuden idatzita. Elizen arteko biblia

Gogoan dut ez nuela negarrik egin, barrenak ez zidala **aienerik** eragin. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gero eta kolpe gehiago entzun genituen, baina garrasiak isildu egin ziren, eta, handik aurrera, **aiene** luze bat eta kexu apal batzuk bazik ez zitzaizkigun ailegatu. Rafa Egiguren

Asunekin izaniko jokoak dakarzkio gogora, intziri itoak, **aiene** mutuak. Alberto Barandiaren

Denborarekin haren **aiene** motelak jasaten ikasi nuen, bai eta gure ama miresten ere, zergatik ez. Iban Zaldua

Kantarien hatzek jotako xirulen korda hotsa eta **aiene** gozoak entzuten ei dira. Xabier Amuriza

Inongo argitasunik ez beraz, bai ordea **aiene** sakonak. Jon Muñoz

Gelan zegoen gehiegizko beroa, gelakidearen **aiene** beldurgarriak eta leihotik harantz zabaltzen zen ikusmira, gaixoaren begiek soilik deszifratzen dakitena. Berria - Kultura

Aretoaren beste muturretik **aiene** txiki bat iritsi zen. Iñaki Mendiguren

Hori entzutean, Nevilleri **aiene** txiki bat atera zitzaion, eta Malfoy kolpean geratu zen. Iñaki Mendiguren

Haren eskuinean Ronek **aiene** isil eta etsigarri bat egin zuen. Iñaki Mendiguren

Aitaren oihu eta aiene goibelak entzunik, beste mahastilariek ere berehala etorri ziren eta, aitaren saminarekin bat eginda, gaztearen gorpua atera zuten hondakinen artetik. Askoren artean

Musika hura argizko ur-jauzi baten moduan erori zitzaien gainera zientzialari guztiei, hitzik gabe, **aiene** atabikoa bailitzan. Fernando Morillo

Merkatariak, haren kontura aberastu direnak, haren oinazearen izu-ikaraz urruti geldituko dira, negarrez eta **aiene** bizian. Elizen arteko biblia

Jendeak lasaitasunezko **aieneren** bat jaurti, eta arnasa hartu zuen, Martha Cory zintzilikatutakoan bezalaxe. Anjel Lertxundi

Esateko adorerik ere ez duenaren hildurazko **aieneak**, hots, alarau motelduak, Herioren hatsaren hotzaz kexatzen diren gizakumeenak. Edorta Jimenez

Isilpeko **aiene** apal xume bat antzeman zenion. Rafa Egiguren

3 (hitz elkartuetan)

Biolin baten **aiene**-melodia. Fernando Morillo

-Sentitzen dut -esan nuen **aiene** doinuan. Joxan Elosegi

Orain, irratiaren ordez, amaigabeko otoitzak entzuten ziren, eta erregu-**aieneak**. Juan Kruz Igerabide

4 irud/hed

Zergatik entzungo nuen kaioen **aienea**? Agustin Otsoa

Harrobian egon eta harriak barruan izan dezakeen min guztia, **aieneak**, kantuak... sentitzea. Berria - Kultura

Miles Davisen tronpeta urratua eta John Lee Hockerren **aiene** lakarra. Lourdes Oñederra

5 ***aiene egin***

-Bazekinat zer egin -esan zuen Dembak, **aiene eginaz**. Anton Garikano

Egin aiene zoritxarreko egunarengatik! Elizen arteko biblia

Entzun orain, zuek, aberatsok! **Egin negar eta** aiene, gainera datozkizuen zoritxarrengatik. Elizen arteko biblia

Jaiki, egizu **aiene gau osoan** etengabe; hustu ezazu bihotza Jaunaren aurrean; jaso eskuak hari, kaleburu guztietan goseak hiltzen dauden zeure haurren alde otoika. Elizen arteko biblia

Egingo du bai -Santxok berriro-; **aieneka** horretan, hilabete osoan eten-gabe aritzeko bidea darama eta. Patxi Ezkiaga

Nire zerbitzariek poz-oihu egingo dute bihotza bete zorionez; zuek, berriz, **garrasi egingo** bihotzeko nahigabez, aiene barruko saminez. Elizen arteko biblia

Nor izango da hain **bihozgogor aiene** ez egiteko? Askoren artean

· Hegazkina zuloetan barneratzen da berriro, **aieneak eginez**. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aiene bat (5); **aiene egin** (3); **aiene egingo** (3); **aiene eta** (6); **aieneak eta** (8); **aienerik ez** (4); **egin aiene** (4); **eta aiene** (14); **eta aieneak** (9); **haren aieneak** (4); **negar eta aiene** (4)

---

aieneka **1** *adlag* aiene eginez.

Jesus Jerusalemengatik **aieneka**. Elizen arteko biblia

Hobe zen aitzin-artatzea, ondotik **aieneka** sendatzea baino. Itxaro Borda

Kleiman gaixo dagoela, Miep etxean dagoela marrantarekin, berak ere bihurritu bat izan duela orkatilan, maite minak dituela gainera, eta etxean aita denbora guztian **aieneka** duela, pentsatzen ahal duzu zer egoeratan dagoen. Josu Zabaleta

Nahasmendua gazteluko patioan: zakurrak saingaka, emakumeak **aieneka** eta soldaduak lasterka armen hartzera. Aingeru Epaltza

Halakoetan, **aieneka** adierazi ohi nien zein zorigaiztokoa eta abandonatua sentitzen nintzen, eta itxaron egiten zidaten haien parera iritsi arte. Mirentxu Larrañaga

Susana **aieneka** hasi zen: -Ez dut irtenbiderik! Zuek esana egiten badut, heriotza-zigorra dut adulteriogile izateagatik; egiten ez badut, berriz, ezin ihes egin zuen eskuetatik. Elizen arteko biblia

Eta, nork bere burura hautsa botaz, oihu egiten zuen negarrez eta **aieneka**: "Ai zu, ai hiri handia! Elizen arteko biblia

Azkenean, putzura eroria zela oharturik, herrira itzuli ziren presaka eta **aieneka**, gertatua kontatu eta laguntza eskatzera. Askoren artean

Mutila minez **aieneka** ari da. Oskar Arana

Aieneka ari dira moabdarrak, Nebo eta Medaba hiriak suntsituak direlako: burua soil eta bizarra motz daramate guztiek. Elizen arteko biblia

Nor ari da **aieneka**? Nor zotinka? Nor liskarretan? Nor kexuz? Elizen arteko biblia

Bai, **aieneka** eta **aieneka** ari naiz, eta guztiz makaldua nago. Elizen arteko biblia

Eta han-hemenka oinazetan garrasika, bestalde, hiruzpalau dozena giri entzun zitezkeen, larriki zauriturik, eta **aieneka** ari. Txillardegi

Zoritxarreko gaixo haiek ez zuten ulertzen oraindik behartsuaren solidaritateak baduela aberatsa suntsitzeko indarra, eta beren egoeraz alfer-alferrik **aieneka** jarduten baizik ez zekiten. Josu Zabaleta

Aieneka urratzen da, lohadarrak minez kizkurtzen baitira. Xabier Amuriza

Alajainkoka eta **aieneka**, // erreuma du ahaztuko, // bidea itxiz, amorru etsiz // Satan desafiatuko. Xabier Olarra

2 (izen gisa)

Egia garbitzen saiatu beti aberatsaren esku erakutsien tartean; eta baita pobrearen berriz eta berrizko **aieneka** guztien tartean ere. Patxi Ezkiaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aieneka ari (17); **aieneka ari zen** (3); **aieneka eta** (8); **aieneka hasi** (6); **aieneka hasi zen** (5); **eta aieneka** (19); **eta aieneka ari** (6); **jerusalemengatik aieneka** (3); **minez aieneka** (3); **negarrez eta aieneka** (5); **oihuka eta aieneka** (3)

---

aieneko *iz* aienea.

Baina ez zen honela izan; bere ondoan hizketan ari zirela nabaritu baitzuen Basoko zaldunak; eta, bere **aienekoari** jarraitzeke, zutitu zen eta ozenki eta astiro honela mintzatu zen: [...]. Patxi Ezkiaga

---

aienezko *izlag* aienez osatua.

Egunen batean bere adiskidearen maitasun haiek negar eta **aienezko** tragediatxo batez amaituko zirela ziur jakitea, andre Leonarda garrasika eta Nini alditxartuta, ez zekarkion batere atseginik. Josu Zabaleta

---

aieru **1** *iz* aztarnetan edo seinaletan oinarritzen den ustea edo susmoa, aburua.

Uste zuelako ezen bi gertaki haiek -kaperako obren akabatzea eta aita Bartolome Urbiainerat etortzea- ez zirela kointzidentzia huts, baina Jainkoaren probidentziaren **aieru** eta seinale. Joan Mari Irigoien

Maiatza hasi berria zen, eguraldiaren **aieruak** onak ziren eta are hobeak gure adurraren iragarpenak. Edorta Jimenez

Bernoullirentzat, **aieruak** egiteko artea dun stochastika: begiz jotako helburua erdiesteko zer egin behar den jakiteko artea, azkona-jaurtitzailearen irudiz. n=5erako frogatu zuen Legendrek **aierua**; Lamé delako batek, berriz, n=7rako; eta Lejeune-Dirichletek n=14rako, azkenik. Jon Muñoz

Urrun nigandik goganbeharturik daukaten **aieruzko** usteak suntsitzeko asmoa! Jon Muñoz

Egia erran, isilmandatariaren egiteko hori, nahiz **aieruzko** ustez gaitzetsia izaten baita, arras jostaldi polita iruditzen zait, horrez gain zereginik izanez gero; eta hori bera izanen da zure kasua. Jon Muñoz

Kontua sakonago aztertzea erabaki nuen, psikoanalisiari buruzko eskuliburuak irakurtzea, ea ordena pixka bat ipintzen nuen **aieruzko** zurrunbilo haren baitan ote zegoen, bada, hain modu paradoxikoan agertzen zena? Juan Kruz Igerabide

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aspaldian erakutsi ez zidan eztitasun horri **aieru** on iritzirik, saiatu naiz, auhenetan berriz hasiz, haren eskua tinkatzen. Jon Muñoz

-Ez duk **aieru** ona -esan nuen nire artean, eta, hara!, neuk ere burua sineskerietan nahasturik nuela konturatu nintzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beste **aieru** txar bat zen hura, katea luze bateko beste begi bat. Edorta Jimenez

Batzuk aztoratu egin ziren, eta 1588ko urte hartaz ziren **aieru** gaiztoak aipatu zituzten. Edorta Jimenez

Abuztuko ortziral horretan, nire **aierurik** beltzenak egiaztatzen ari zirelakoan trabeskatu nuen etxeko korridorea, kezkak zizta-zizta egiten zidala. Aingeru Epaltza

Egizak kontu badela kontinente bat, existitzen dela gizadi osoak badakiena, baina sarbiderik inork aurkitu ez diona; horixe duk **aieru** matematikoa! Jon Muñoz

Matematikako **aieru** ospetsuenetariko batzuen batzuk ebaztea erabaki nian! Jon Muñoz

-Goldbach, Goldbach... Haren bigarren **aierua** frogatu zuen Grosrouvrek! Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan)

Aingeru aurpegi horretan ez zen, alabaina, trufa- **aierurik**, sufrimendu neurtezin eta isilaren marka baizik. Aingeru Epaltza

Erran behar zen ondorioz, Fleuryko beste euskaldunen partetik halako saiheste **aieru** bat nabaritu zuela mutikoak. Itxaro Borda

4 ***aieru egin***

Ellenek **aieru egin** zuen haren begien distiraren aurrean. Lopez de Arana

Kurten ekintzei buruz ezin konta ahal **aieru eginez** eta lastairako zimitz ugarien konpainian hartu ninduen loak. Anjel Lertxundi

Katedraleko domoa, airezko eta hauskor, eta gero, han-hemenka, dorretxo sail bat, printza dirdiratsuz izarniatzen zuten teila urdin eta zuriz estaliak Andres ia guztiz ezezaguna zuen herri hari begira egoten zen, eta apetazko mila **aieru egiten** zituen hango biztanleen bizimoduari buruz. Josu Zabaleta

Ez zen hura **aieru egiteko** unerik egokiena. Migel Angel Mintegi

5 ***aieruzko***

Ezagutzen duzu murru arteko hezibidean duen uste irrigarria, eta emakume bilo-horien neurritasunaren fabore duen **aieruzko** uste are irrigarriagoa. Jon Muñoz

6 ***Legendreren aieru*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Legendreren aierua: Honek, karratu perfektuak diren bi zenbakiren artean behintzat zenbaki lehen bat badagoela dio. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aieru bat (10); **aieru edo** (3); **aieru eta** (8); **aieru eta seinale** (6); **aieru ona** (3); **aierua ebatzi** (3); **aierua ez** (3); **aieruak besterik** (3); **aieruak besterik ez** (3); **aieruak ebatzi** (5); **aieruak eta** (4); **bi aieruak** (5); **eta aieru** (6); **eta aieruak** (4); **fermaten aierua** (7); **goldbachen aierua** (3); **grosrouvrek aieruak** (4); **grosrouvrek bi aieruak** (4); **nire aieruak** (3)

---

aieruka *adlag* aieru eginez.

Orduan, istorio miragarriak asmatzen hasi ziren **aieruka**. Karlos Zabala

---

aierukada *iz* airuzko esaldia.

Gogotxartu ninduen neskaren **aierukadak**: bakardadea omen nire tristeziaren iturri, bere irudiko. Joxe Austin Arrieta

---

aierukor *adlag* aieruz ari dela.

Lehiaz eta aldi berean **aierukor** jantzi nuen opari seguraski pozoitsua. Aingeru Epaltza

---

aierutsu *iz* aieruz betea.

Katedralak xurrutarririk **aierutsuenak** ere xurgatzen ditu, bere abestian. Josu Zabaleta

---

aierutu, aieru(tu), aierutzen du *ad* aieruz kalkulatu.

Sabethek -nik hartaz galdetuta- berrogei urteko adina **aierutu** zidan, baina, ezetz, berez berrogeita hamar ditudala esan nionean, harritu ere ez bera. Joxe Austin Arrieta

---

aieruz *adlag* aieruak oinarri harturik.

Egia zen batzuetan **aieruz** mintzatu zitzaiola, ezjakin antzean zenbaitetan besarkada antzeko zerbait eman ziola, goiz hartan bezala, baina Josebak, sexua nahi zuela konturatzean, bazterreratu egin zuen aldiro. Iñaki Zabaleta

Baina neska guztiak ez ziren enekomanoak, eta haien artean ere gauzak ez ziren nik uste bezain errazak; autografo bila zetozkidàn emakumeen artean saiatu nintzen behin edo behin **aieruz**-edo zerbait esaten, baina hutsaren hurrengoak izan ziren nire fruituak. Joan Mari Irigoien

XIX. mendearen hasieran, ebatzita zeuden dagoeneko Fermatek plazaraturiko auzi guztiak; **aieruz** adierazitako guztiak zein erabat frogatu gabeak. Jon Muñoz

---

aieruzko *izlag* aieruetan oinarritutakoa.

Urrun nigandik goganbeharturik daukaten **aieruzko** usteak suntsitzeko asmoa! Jon Muñoz

Kontua sakonago aztertzea erabaki nuen, psikoanalisiari buruzko eskuliburuak irakurtzea, ea ordena pixka bat ipintzen nuen **aieruzko** zurrunbilo haren baitan ote zegoen, bada, hain modu paradoxikoan agertzen zena? Juan Kruz Igerabide

aieska *iz* oinaze oihua.

Hasierako kolpeak, ukabila itxita, masaila bete-betean jo bazizkion ere, hurrena ukaldi indargabe sarriak eman zizkion, negarrak amorrua baretu izan balio bezala, eta azkenerako, ukabilak itxita, bular gainean batera erortzen utzi zituen, **aieska** bihurtuta negarra. Inazio Mujika Iraola

---

aieta *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* errizoma, erraboila.

Idi-bihotzak emango dituzten erraboilak edo **aietak** ere bertatik esportatzen dira, urtean pare bat mila milioi inguru... ETC-prentsa

Ireki gabea dagoenean, loreak duen itxura eta baita lore deigarri hori ematen duen lurpeko **aietak** edo erraboilak duen forma ote dira arrastoak? Bihotz baten eitearen antza izan dezakete... ETC-prentsa

Noiznahi topatuko duzu bere **aieta** erosgai, loreak ertzetan mendela arrosa duten ardo koloreko petaloak ditu. ETC-prentsa

Urte sasoi honetan aldatzen diren **aieta** edo erraboilek idi-bihotzak emango dituzte hemendik bost bat hilabetera. ETC-prentsa

---

aiez *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) adlag* aieneka.

Xamurtasun eta leialtasun horien irudiak pertsegitzen nauela, non ere naizen, eta neroni jartzen naizela minez eta **aiez** su horrek neu erreko banindu bezala. ETC-literatura, saiakera

---

aiezka *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) adlag* aieneka.

Baina denek gogoratzen dute euskarazko pasarte bat: Ebaren umeok zuri **aiezka** gaude antsiz eta negarrez, negar herri honetan... ETC-literatura, saiakera

---

aihaltiar *iz ipar* afaltiarra.

Aiharia, ikastolako aitamek zerbütxatürik, hanitx ontsa joan da, ehün bat **aihaltiarrekin**. Herria

---

aihari *iz ipar* afaria.

Astelehena 10: herritarren egüna, aüzogüneen arteko joküak eta **aiharia**. Herria

Aiharia, ikastolako aitamek zerbütxatürik, hanitx ontsa joan da, ehün bat aihaltiarrekin. Herria

---

aihen 1 *iz* mahatsondoa; mahatsondoaren abarra.

Exkol ibarrera iritsirik, **aihen** bat moztu zuten, mahats-mordo bat bakarra zuena. Jose Antonio Mujika

Hiru **aihen** zituen mahatsondoak; kimuberritu zen, loratu eta ondu egin ziren mahats-mordoak. Elizen arteko biblia

Amamak bere erretratu zahar hori Goioren esku ahurrean ipini, Goioren eskua **aihen** moduko atzamar bigunez sakatu, erretratutxoa mutikoaren esku zarratuaren barruan uzteko, eta Goiori negu guztiek baino hotzikara handiagoa eman zioten hitzok esan zizkion: [...]. Joseba Sarrionandia

Lepoak iganik, **aihenezko** zubien bidez errekak zeharkaturik, hartz baten ganik lasterka ihesi eskapaturik, arrantzek zarrapatua, eskuak odoletan harpe batera heldu zen. Herria

Saleu Katoueu, Saleupleu-koa, hantxet Danane aldean, Bolikostan dauden **aihenezko** zubi ederrenen eskualdea. Herria

2 (izenondoekin)

Aihen meheak bota aurretik marrubiondoak egiten duen gauza bera egiten zuten emakumeek: berdetasuna aldatu. Anton Garikano

Haren atzealdean, areto margotu berriak mahats **aihen** freskoak zituen hondo leun baten gainean. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero **aihen** hariak ateratzen ziren, eta gero pujak. Anton Garikano

Aihen-belarrak gora egin du irmotasunez eta pertsianetako pintura zatiak urrun joan dira egun euritsuekin. Eider Rodriguez

Mahastian amaitzen dute eguna; Axenariok, tarteka, begiz jarraitzen du aitapontekoa, pausoz pauso, pikatxoiarekin lanean ari dela; tarteka, berriz, **aihen** sorten gainean etzan eta, begiak zeruan katigatuta, zume-pixarrak zupatzen ditu. Itziar Otegi

Gogorrena 1961a izan zen, ama gosez hil baitzitzaien: seme-alabei urki azaletan, **aihen** zukuz idazten erakutsi zien emakumea. Pablo Sastre

Etorriko zen larrazkena, sasoi maitatuena eta ere kolore ederrenekin atzaparka gora igoko kolegio aitzineko murruan betiko **aihen**-basa. Piarres Aintziart

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berriro makurtu zen aitzurrarekin, piper eta kalabaza-**aihen** artean. Anton Garikano

Huntz-**aihen** hilak parda eta kisketen jiran. Anton Garikano

Harryk eta Ronek, berriz, hankak estu lotuak zituzten **aihen** luzeez, beraiek ohartu ere gabe. Iñaki Mendiguren

5 irud/hed

Buenos Airesen, italiar **aihenekoa** izatea izen txarrekoa zen artean; Londresen konturatu nintzen askorentzat halako atributu erromantiko bat zela. Juan Garzia

6 ontziak amarratzeko estaka.

'Zer,' esan zuen agureak, ' **aihenetan** ondo amarratuta utzi dituzue enbarkazioak?'. Joseba Sarrionandia

Ailegatzean neuk amarratuko nuen txikota **aihenean**. Joseba Sarrionandia

7 ***aihen-belar***

Etxe ederren auzoa, etxe bakoitzaren inguruan lorategia bere murruekin, **aihen-belar** igokariak, zuhaitzak, glizinia pila alde guztietan. Fernando Rey

Marrubi usaina zenuen, buruko biloek garondoan behera egiten zizuten, **aihen-belarraren** moduan, eta nik norian zerua ukitzen duen haurraren sentipena nuen. Lander Garro

Aihen-belarrak gora egin du irmotasunez eta pertsianetako pintura zatiak urrun joan dira egun euritsuekin. Eider Rodriguez

8 ***aihen-ezker*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Lehenengoan, "aihen" hitzak zer izendatzen zuen azaldu zidan, eta zer landare zen "**aihen-ezkerra**"; bigarrenean, tximeletaren hego azpiko hautsa "lakrea" zela; hirugarrenean, zer gertatu zen Idogarate ("Ilobate") baserriko mutil koskorrarekin. ETC-literatura, saiakera

9 ***aihen zuri*** *(orobat **aihen-zuri**)* zuztar kiribilkorra eta igokaria duen landarea, lore zuriak eta usaintsuak ematen dituena *(Clematis vitalba).*

Aihen zuri kiribil batek tira egiten dio iletik. Itziar Otegi

Gainean, buru-ttonttorrean, jasminez, arrosez, almitzez eta **aihen-zuriz** egindako apain buruntzak; agure agurgarri bat eta atso handi bat zetozen gidari. Patxi Ezkiaga

Zumadi sarriek latz egiten dute itsasertza, zeinetan makal baso zabal naroak aurkitzen baitziren, gehiago lehen orain baino, han-hemenka haltz eta sahats sailez banatuta, edo

aihen-zuri usaintsuz ezkutatuta Belazean, Matilde txikia geldi-geldi eta tente dago, **aihen zurizko** koroapean. Koldo Biguri

10 ***aker-aihen*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Atxaparra, sasiama, ahuntz-hostoa edo **aker-aihena** ("Lonicera") Caprifoliaceae familiako genero baten izen arrunta da, barnean 526 espezie, horietatik 108 onarturik, dituena. ETC-entziklopedia

11 ***ezker-aihen***

Kanpalekua frango pollita da lore taulenak, **ezker-aihenak**, eta itzalguneetan, xarbota usain goxokoak. Marzel Etxehandi

Krabelinak, **ezker-aihenak**, urre-liliak. Anton Garikano

12 ***ezker-aihen zuri*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ezkerte zuria ("Calystegia sepium"), **ezker-aihen zuri**, birigane zuri, birigain zuri edo lurruntz zuri izenez ere ezagutua, klima epeleko Ipar hemisferioko Europa, Asia, Afrikaren ipar-sartaldea eta Ipar Amerikan eta Hego hemisferioko Australia eta Hego Amerikako Argentinan hedatua dagoen belar gaiztoa da. ETC-entziklopedia

13 ***mahats aihen*** *(orobat **mahatsaien** g.er.)*

Haren atzealdean, areto margotu berriak **mahats aihen** freskoak zituen hondo leun baten gainean. Karlos Zabala

Mahastia bezala larrutu zuten harraparіek, **mahats-aihenak** soilduz. Sar bedi etsaia mahastian eta hondatu, baina erabat deuseztu ez! erauz bitza **mahats**-aihenak, ez baitira nireak! Elizen arteko biblia

Ile kizkurrak kopetan behera erortzen zitzaizkion, **mahats aihenen** irudira. Karlos Zabala

Eskortatxo horretan aihendegi bat zuten, **mahatsaihen** sortak eta mahatsondo zaharretako egur pilak lehortzen egoten zirena. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aihen ahula** (3); **aihen zuri** (3); **aihenak eta** (3); **eta aihen** (4)

---

aihendegi *iz* aihenak dauden tokia.

Etxeak bazuen atzeko aldean adobezko hesi-horma bat, arbaztaz estalia, barruan ukuilua, gurdiarentzako teilapea, **aihendegia**, dolarea, bodega, olio-errota eta zenbait patio eta eskorta hartzen zituena. Josu Zabaleta

Eskortatxo horretan **aihendegi** bat zuten, mahatsaihen sortak eta mahatsondo zaharretako egur pilak lehortzen egoten zirena. Josu Zabaleta

---

aihendu, aihen/aihendu, aihentzen da *ad* aihenak, kimuak erne.

Bizi ardatz nirearen jiran **aihendutako** huntza baino areago zuntz ere zunztu zitzaidan natura eta naturarekin hainbat bizikideen izpiritua eta poza. Pello Zabala

---

aihenkatu, aihenka(tu), aihenkatzen da/du *ad* **

Koloreen pobrezia, egituraren kilikolotasuna, sekula amaierarik asmatzen ez duten parrafo arnaslarrituak, azkenik gabeko itzulikan **aihenkatuz**; errepikapenak, proportzio falta, ondore hori jaso zuten, obra hilezkorraren lorpenik gorena forman bilatu beharrez, mami sendoa eta zaporea barnean gordetzen zituen oskol zakarra marruskatzera eman zirenek Juan Garzia

---

aihenondo *iz* mahatsondoa.

-Gure etxe sartzeko borta alde gainean bazüzün **aihenondo** bat. Menane Oxandabaratz

---

aihenzuri *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi) iz* Ranunculaceae familiako zuhaixka *(Clematis vitalba)*.

Aihenzuri edo ezkabia-belar ("Clematis vitalba") Ranunculaceae familiako zuhaixka da. Jada Harri Aroan arropa egiteko erabilia, saskigintzan nahiko ezaguna da. ETC-entziklopedia

Bach doktorearen lore esentzien sistema, hipersomniarako aproposa da **aihenzuria** (Clematis vitalba); unean uneko kontzientzia errazten du lore esentziak. ETC-prentsa

Bigarren formula Laguntza Erremedioa eta esentzien konbinazio bat da: intxaurrondo arrunta (Juglans regia), **aihenzuria** (Clematis vitalba), indigaztainondoa (Aesculus hippocastanum). ETC-prentsa

Berak bildutako eta lehortutako **aihenzuri** (Clematis vitalba) sorta batekin osatu du obra, landareak harizko egitura batzuetatik zintzilikatuz. ETC-prentsa

Aihenzuria nahasten zen hesi-zukaxketan, bidexkak goroldioz estaliak ziren, nun nahi laharra nasaiki. ETC-literatura, saiakera

---

aiher 1 *iz* joera, jaidura, nahia.

Hala eman dit **aiherrak**. Koldo Izagirre

Hurtadoren eta Montanerren arteko **aiherra** liburutegi baten erakusleihoaren aurrean agertu zen berriro. Josu Zabaleta

Arte eta literaturari emanak bizi izan direnen bizitza iheskorrak gure egiteko **aiherrak** gaude, gertuago sentitzeko, geu ere denboran zehar atzera eginez lagin horren zati izateko. Berria - Kultura

2 ***aiher izan***[1] da *ad* nahi edo joera bizia izan; gorrotoa edo gaizkinahia izan.

Asmo xamur bat ere erne zitzaion barrenean: andre gaztearekin Cannesera bidaiatzea, zeren Andreas, pobre guztiak bezala, **aiher baitzen** sakelan zeukan dirukopuru txikia handitzat hartzera (eta bereziki pobre edaleak **izaten dira** horretara **aiher**). Matías Mujika

Begitartea eztitu bezainbat zuen ahotsa apaldu, eta gisa hartara adierazi zidan zein **aiher** zen Garrüzeko berri izateko. Aingeru Epaltza

Bankuek bazuten **aiher** bulegoak ixteko, ez irekitzeko, Britainia Handian gertatzen ari zen bezala. Pello Salaburu

Aurrekoetan bezala **aiherrik izan** arren, Lainezek ez du behin ere jiratu burua estazioko eremuan egon den bitartean. Pello Lizarralde

Ezer gutxi zakitek haien mugak defendatzen egin dugun lan luzeaz, baina ez **zieat aiherrik**. Agustin Otsoa

Oilalur sakona maite du Perurenak, eta ez die batere **aiherrik izaten** giza-arrastorik apenas duten eremuei, hots, oxigenoan ez eze toponimian ere eskas diren altura bakartiei. Patziku Perurena

Ohitura ezberdinetarik sortu liskarrek desegin ohi dituzte jendaki ezberdinek osatzen dituzten estatuak hauen bi alderdietarik bat batzen baitzaio etsaiari, bera **aiher** zaiolarik beste alderdiari. landare batzuek argiari **aiher** eta gorroto dioten bezalaxe, badaudela pertsonak ere izenari, famari eta jendaurreari beldur diotenak. Piarres Xarriton

Zeren, joanak joan, ez **bainaiz** aitari **aiher**; aldiz, gauero otoitz egiten diot Jainkoari, zeruan izan dezan amoreakatik. Joan Mari Irigoien

Baldin ontsa jujatu banau, ez **zait aiher** izanen urrats hori egin izanaz: baina orobat behar du jakin ezin aldatuzko xede bat dela. Jon Muñoz

Herren, itsu eta gorrei buruzko pasadizoak kontatzen ziren, jaiotzetik hala zirenak gerratik libratu zirelako eta haiei **aiher genielako**. Harkaitz Cano

3 ***aiher izan***[2] du *ad*

Hunek beti **aiher ditu** probintziako parte batzuetan euskararen alde lan egin nahiz ari direnak. Herria

Herren, itsu eta gorrei buruzko pasadizoak kontatzen ziren, jaiotzetik hala zirenak gerratik libratu zirelako eta haiei **aiher genielako**, edo akaso, heriotzari buruz eta maingu eta herrenei buruz hitz egitea, aukera gertagarri haiek konjuratu eta gugandik uxatzeko erarik onena zelakoan. Harkaitz Cano

4 *aiherrak egon*

Arte eta literaturari emanak bizi izan direnen bizitza iheskorrak gure egiteko **aiherrak gaude**, gertuago sentitzeko, geu ere denboran zehar atzera eginez lagin horren zati izateko. Berria - Kultura

Handik aurrera, goizean jaiki bezain pronto, lagunengana joateko **aiherrak egoten** zen mutikomotza, baina, behin gertatuak gertatu, nola ba utzi amak! Patziku Perurena

Cecily erantzuteko **aiherrak dago**. Antton Olano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aiher da** (3); **aiher izaten** (3); **beti aiher** (4); **dira aiher** (6); **girixtinoeri dira aiher** (3)

---

aiherbide *iz* aihertzeko bidea.

Bada **aiherbiderik** salatzeko: laburretan heltzen den zikina, ez kazetariak ez irakurleak ezin irents lezakeen satsa da. Iñigo Aranbarri

---

aiherga *(ETCn 41 agerraldi) izond* zerbaiti buruz ez hotz ez bero dena.

Heriotza-modu tristeenen eta hilketa-klase basatienen lekuko hotz **aihergak** gara garagardo bat hartzen ari garen bitartean. Anjel Lertxundi

Heriotza-modu tristeenen eta hilketa-klase basatienen lekuko hotz **aihergak** gara garagardo bat hartzen ari garen bitartean. Anjel Lertxundi

Lanak etengabe zehazten diharduen kontzeptua da (bera alde batera utzi gabe, bi irudi positiboren artean dagoen zuritasun uniformea eta **aiherga** bailitzan). dena begiratzen zuen, erantzun laburren bat edo beste ematen zuen, edo burua jaso, baina motel, astiro, hits, **aiherga**, etsipenezko espresio aldagaitz ia-ia malenkoniatsua aurpegian eta begi gaztainkaretan. Xabier Arregi

Ez al dago hau guztia desagertzeko arriskua azterketarako espazio zuri bat utziz, **aiherga**, barnetasunik eta promesik gabekoa? Xabier Arregi

Zeinuen materialtasuna, izan ere, ez da guztiz **aiherga** gramatikarekiko edo logikarekiko. Xabier Arregi

Jarraitasunarekiko **aiherga** izan barik, arkeologiak deribazioa denborazko bektoreak kokatzen ditu. Xabier Arregi

· Substantzia **aiherga** baten balioa hartzen badu. Xabier Arregi

---

aihergo *(ETCn 11 agerraldi) iz ipar* nahi edo joera bizia; gorrotoa edo gaizkinahia.

Erraten da lau irrika edo pasio nagusi horietarik bestalde, badirela horietarik datozen beste zazpi, ez hain garrantzitsuak eta nolazpait horietara biltzen direnak, hala nola baitira maitasuna eta guraria, **aihergoa** eta eta 3. artikuluan aipatzen eta frogatzen diren besteak. Piarres Xarriton

Gaur epaitu duen sententziak hobeki epaitu beharko baitzuen, nihonek hobeki ezagutu dudalakotz haren etorkia, haren bizia, haren jakitatea, haren fede gartsua, haren heretikoei buruzko **aihergoa**. Piarres Xarriton

Sarako herriak etengabe **aihergo** nabariena agertu diola Iraultzari; herri honetan denak aristokratak direla. Elena Touyarou

Horien arteko **aihergoak** eta terrorismo jestuak. Herria

Israeldar eta Palestinarrak betiko **aihergoan** daude. Berria - Mundua

---

aiherkor *izond* aihertzeko joera duena.

Ez dira ez urguilontziak, ez jeloskorrak, ez **aiherkorrak**, ez likitsak, ez gormantak, ez gezurtiak, ez ohoinak. Aurelia Arkotxa

Cyril Tourner-en manerek ateismo **aiherkorrago** bat iradokitzen dute. Juan Garzia

---

aiherkunde **1** *iz* gaizkinahizko edo gorrotozko grina bizia.

Poloniar gehienek bazuten beti halako **aiherkunde** bat frantsesentzat eta ez zuten desberdintasunik egiten euskaldun eta frantsesen artean. Eneko Bidegain

Aitaren eta semearen arteko desadostasunak ez zuen arrazoi berezirik behar izaten azaltzeko; erabateko eta guztizko desadostasuna zen; edozer gai ukitzea aski zen **aiherkundea** piztu zedin. Josu Zabaleta

Hargatik ez dizut **aiherkunderik**, ene moldean maitatu zaitudalako. Itxaro Borda

-Beharbada ez duk oso zori onik izan nirekin izan dituan tratuetan -esan zion-, bazekiat, baina ez niake nahi horregatik gure artean inolako **aiherkunderik** izaterik, eta etorriko haiz nirekin afaltzera. Josu Zabaleta

Horien guzien ikerketez badute aste huntan biltzar bat egin beharra eta ez dute holako susmoek ttipituko aintzina ere Hego eta Ipar Koreek elgarri buruz duten **aiherkundea**. Herria

Egia erran, harentzat neukan **aiherkundea** pixka bat jabaltzen hasia zitzaidan. Daniel Landart

Zer nahi gisaz, hauxe zion: ez da gizarte aitzinamendurik lortzen **aiherkundea** eta herra gehiengoaren kontra zabalduz. Herria

2 (izenondo eta kidekoekin)

Smithek besterik badio ere, zibilizazio gehienetan, gizabanakoa ez da trukearen zale izaten; aitzitik, **aiherkunde** nabarmena sumatzen da gizabanakoaren interesak argi eta garbi gidaturiko jardueren aurrean. Koro Navarro

Joanttok pentsatu zuen bere lagunak apezei **aiherkunde** berezia ziela, baina ez zion arrazoiaren azalpenik eskatu. Elena Touyarou

Zergatik nabaritzen zen zure bihotzean estatu horien kontrako **aiherkunde** nahasi hori? Alcalan nabari zen zuzenbide ikasketen aurkako **aiherkunde** bizia. Itxaro Borda

Horiek orok salatzen dute bederen **aiherkunde** seriosak badituztela hango beltzek gure kontra, guk hemen ez ginazkienak. Herria

Zuen lerroetako demagogoek hazitako **aiherkunde** politiko sakonaren ondorioa zen, menturaz. Itxaro Borda

Nafarraren idazkietan nabari zaio liraintasun eskolaren eta ohargileen ondokoek asmatu eraikin trinkoak baino gehiago beren filologia jakintza estimatzen zuten humanistei buruzko **aiherkundea**. Piarres Xarriton

Zergatik eraso ote zion horrelako **aiherkundez**? Gotzon Garate

3 (hitz elkartuetan)

Anitz amerikanok ezin onetsia daukate araba musulmano berriek heientzat duten **aiherkunde** aire hura. Herria

Ez dugu **aiherkunde** girorik sortu behar gai hauen inguruan. Berria - Euskal Herria

Itzuli zen, eta beha gelditu zitzaion, **aiherkunde** izpirik gabe. Elena Touyarou

Irakeko jendetzaren zati batentzat ongi etorriak leudeke herrialde auzoetako indar hauek, baina beste gizataldeentzat **aiherkunde** eragile litezke. Berria - Mundua

Ihardetsi behar izan nion robotari buruzko hainbat ume-irudikeriari, baita hainbeste haserrearazten nauen makinaren aurkako giza **aiherkunde** hain kamuts horri ere. Joxe Austin Arrieta

---

aihertar *izond/izlag* Aiherrakoa, Aiherrari dagokiona; Aiherrako biztanlea.

Sortzez **Aihertarra**, ainitz urtez Isturitze Etxeberrian egon da laborari gisa, etxe hortarat ezkondu baitzen zorigaitzez gazterik alargundua zen Xabinarekin. Herria

Arratsean Aiherran gaua pasatu ondoan, biharamunean **Aihertarren** gain zerbeiten antolatzea. Herria

Hots, parropia bereko isturiztar eta **aihertarrek**, ahal dugun guzia eginen dugu 3 meza horien ederki kausitzeko. Herria

Joan den asteartean zortzi, **aihertar** multxo bat abiatu zauku Kaliforniarat, dotzena bat egunentzat. Herria

Xipri Arbelbidekin kontzelebratu meza ondarrean, Don Tomasek herri hortan bizi dituzten memento gogorren berri eman du, eta bihotz bihotzez eskertu Isturitze eta **Aihertar** lagunen bisita eta adixkidetasuna. Herria

Aihertar lasterkari edo sustengatzaileek bazuten hautua, joan den ortzirale arratsalde apalean, korrikan parte hartzeko. Herria

Aiherrako auzapeza, kontseilari batekin jin ere da **Aihertar** eta Antzuolar adixkidekin hurrupaldi baten hartzera. Herria

Finalean ditugu gure bi **aihertar** neskak, palantxan, ezker paretean, Euskal Herriko xapelketa nagusiaren kondu. Herria

Jamattit Mendiondo **Aihertar** misionestak bakantza denboraldia luzatu du, osagarri enegu batzuen gatik. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aihertar eta (20); **aihertar eta antzuolar** (5); **aihertar eta antzuolarrek** (4); **aihertar eta auzo** (3); **aihertar haur** (5); **aihertar pare** (3); **aihertarra eta** (9); **aihertarrak eta** (4); **antzuolar eta aihertar** (3); **barbier aihertarra** (3); **bat aihertar** (3); **beste aihertar** (3); **bi aihertar** (3); **da aihertar** (3); **diren aihertar** (4); **dute aihertar** (3); **dute aihertar eta** (3); **duten aihertar** (3); **eta aihertar** (9); **eta aihertarrek** (4); **haristoy aihertar** (3); **mendiondo aihertar** (6); **oyhenart aihertarra** (3); **oyhenart aihertarra eta** (3); **sortzez aihertarra** (4)

---

aihertartu *izond* aihertar bihurtua.

1932 eta 1933an sortu aihertarrak eta **aihertartuak**, bazkari on baten inguruan elgarretratzera gomit dira maiatzaren 21ean, larunbatarekin, Auxotean, eguerditan. Herria

---

aihertsu *izond* aiherrez betea.

Haren itxura urduri eta aski **aihertsua** ikusirik, damu dut segundo batez dezepzionatu izanaz. Monika Etxebarria

---

aihertu, aiher(tu), aihertzen **1** da *ad* makurtu; buru egin.

Ez dudarik izan, bizkonde maitea, ez nire bihotzaz, ez nire jokabideaz: nola **aihertu** nire Cécileren nahi bati? Jon Muñoz

Ez nuen men egiteko ezein asmorik, igerriko zenionez, eta gisa berean **aihertu** nintzaion ehizaren eta ehiztarien kontrako marmarraldi ttipi bati. Jon Muñoz

Ororen ustea ez litzaioke **aihertuko**, eta uste hori ez zenuke zuk aski zeure jokabidea gidatzeko? Jon Muñoz

Zer egin dut, azken finean, ez bada aurtiki ninduten zurrunbiloari ez **aihertu**? Jon Muñoz

Pena pixka bat ere ematen du ikusteak gero eta jende gutxiago ateratzen dela Santa Agedan, Errege bezperan edo Egun Ttun-ttun egunean, karriketan kantatzeko, etxeetan joareak eta zintzarriak jotzeko edo herrietan etxez etxe puskak biltzen ibiltzeko, gure aspaldiko ohiturei **aihertuz**. Pello Salaburu

Nik, aitor dizut, ez dut sekula sinetsi grina arrunt erakargarri eta ezin **aihertuzko** horietan, iduri baitu onetsiak direla gure makurkeria guztien estakuru gisa. Jon Muñoz

Matson andreak, berriz, aurrez aurre aurkezten zizkiotenean baino ez zituen onartzen umeak; **aiherturik** gaitzetsi ohi zuen haien munduratzeko modu gaiztoa. Mirentxu Larrañaga

Badakit ezinezkoa litzaidakeela zure ezein desirari **aihertzea**. Jon Muñoz

Orain, baina, aitortu behar dut, eginbide hori beterik, ene gogo-irrikak berriro dira Frantziarantz **aihertzen**, eta hartakotz berorren baimen eta grazia dut apalki eskatzen. Juan Garzia

Orain berean erran dizut ezen Jainkoak ez ninduela bakarrik utzi, eta guztiarekin ere **aihertzen** naiz erraiterat eta erraiten dizut, berdinzki, ezen gutitan sinetsi izan dudala Jainkoaren Probidentzia nola egun haietan. Joan Mari Irigoien

Are nabarmenago uzten baititu xehetasunetan ageri diren akatsak, hanbatenaz xehetasunak etengabe **aihertzen** baitzaizkio ase nahi den desira bakarrari. Jon Muñoz

Ihes egin nahi izan zuen hala ere; laster zen ordea nire besoetan; eta, **aihertzeko** indarra izatetik urrun, doi-doia gelditzen zitzaion zutik egoteko bezainbat indar. Jon Muñoz

2 (era burutua izenondo gisa)

Botere modernoa barnerrian menekoekin gurutzadan berdin-berdin fanatiko **aihertua**, nola Botere ertarotarra "fedegabe" musulmanekin atzerrian. Joxe Azurmendi

---

aihertze *iz* makurtzea; buru egitea.

Nik, neure aldetik, ez dut dudarik egiten ezen itzulera hori hein handi batean ez denik zure **aihertze** kementsuaren obra, eta zure aldetikako ahulkeria une batek ez zuenik halaber nire iloba betiko galaraziko. Jon Muñoz

---

aiho *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* nahia, desira.

Hasian hasi, esan nafar hodiaren hegoaldera buruz luzatze higuingarria ez gauzatzen hasi ez ezik, benetan egiteko **aiho** eskasak ere nabari direla zizka guzietatik ihes lodian. ETC-literatura, saiakera

---

aihotz *iz* inausteko eta sasiak mozteko erabiltzen den lanabesa, igitaiaren antzekoa.

Ez da ez sardea, ez **aihotza**, ez ebakitzen duen beste ezer ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Sir Thomas Holtek **aihotza** hartu eta bere sukaldaria burutik behera jotzean, buruaren erdi bat sorbalda baten gainera eta bestea beste sorbaldaren gainera erori ziren. Xabier Olarra

Joanesek, aiztoa eta **aihotza** bertan behera utzita eta beste marinel batzuk hartuta, aitzin mastara egin zuen, trinketa delakora, hango bela jaitsaraztera. Edorta Jimenez

Han, ganibet mehe batez, txerri baten saiheski multzo batetik hiru bereizi zituen; eta, **aihotz** bat altxatu eta hiru kolpe zeken jo zituen bere beso sendo biluziarekin. Karlos Zabala

Baziren han poteak, lurrontziak, pertzak, azpilak, latorrizko lanabesak, lapiko sakonak, onil zabalak, ganibet eta **aihotzak** gakoetatik zintzilik, ziriak eta okela urdaiz betetzeko burruntziak ilaretan. Karlos Zabala

Gizon bat atxilotu dute Donostian **aihotz** batekin etxerik gabeko bati eraso egin ondoren. Iñigo Aranbarri

Leihotik zintzilik zegoela, lau hatz moztu zizkioten **aihotzaz**, erpurua izan ezik beste guztiak, leihoaren kontra. Ramon Saizarbitoria

Ez zegoen golde kurboaren eroale indartsurik, ez inork sororik burdinaz harrotzen zekien, ez sastrakarik lurperatzen, ez zuhaitz garaien adarrik **aihotzez** inausten. Xabier Amuriza

Pikaderan **aihotzez** jotako kolpeek Marjolin ekarri zioten gogora, han behean, sotoan. Karlos Zabala

Haiengandik jakin genuen erromazaleen desmasien berri: etxeetan indarrez sartze, ebaste, su emate, ukaldika erabiltze, emakume bortxatze, **aihotzez** kolpatze. Aingeru Epaltza

Ikaragarria zen eltzeen eta **aihotzen** zarata, izugarria etxeko bazter guztietara barreiatzen ziren sukaldeko usainen zalaparta. Karlos Zabala

O, zuek, **aihotza** eskuan duzuenok, emaiozue azken kolpea sineskeriaren zuhaitzari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lorategi zainaren **aihotz** zorrotzak etengabe ezartzen zituen lerroan adar itxitura haiek. Josu Zabaleta

Karandasek artean ere bere **aihotz** -makila zeraman, eta Jehan Petitek zorro bat zeukan bere gakorratzekikoa, gerrikotik zintzilik. Juan Garzia

Bat-batean gelditu, eta ebakiak egin zituen espazioan, karratu baten aldeak irudikatzen zituzten lau **aihotz** -kolpez. Jon Muñoz

Ustez emaztea taberna batean **aihotz** moduko burdina zati batekin mehatxatzeagatik. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aihotz bat (3); **eta aihotzak** (3)

---

aihozkada *iz* aihotz kolpea.

Hor hoa **aihozkadaz** lantzen ari haizen tunelean barrena, landare-multzo itxi-itxiari ebakiak egiten, batere formarik bereizterik lortu gabe. Jon Muñoz

---

aiii *interj adkor* ai.

Horrela, **aiii** , hilgo naizela -txirrista egin du eta berehalaxe bermatu du eskua lurrean min ez hartzearren. Joxemari Iturralde

-Aiii , igande goizetan, elizako kanpai-hotsa entzuten dudanean, eskerrak ematen dizkiot Jaungoikoari hemen jaio nintzelako. Joxean Sagaztizabal

· **Aiiiii** , Itxaso! Pako Aristi

---

aika *adlag* aieneka.

Sartu zitean lehendabizikora eta tiki-taka entzuten nian, ostiaka ari zitzaizkioan, eta tipoa ai, ai, **aika** . Pako Aristi

---

aikido *(corpusean ez dago; ETCn **144** agerraldi) iz* jatorria Japonian duen arte martziala.

Kaoriren **aikido** traje zuria pertxa batetik zintzilik, lehortzen. ETC-literatura, saiakera

Baina amaitu da, oraingoz, brigada mobilak gurekin **aikidoa** praktikatu aurretik gure bertsoei barre egiten zien sasoia. ETC-prentsa

Horiez gain, **aikido** eta japoniar ezpata erakustaldiak antolatu dituzte. ETC-prentsa

Aikido egiten dut hemengo gimnasioan, borroka arte bat da. ETC-prentsa

Besteak beste, karate, **aikido** , tai txi, shurinjikempo eta shinkyokushinkai borroka arteak egiten dituzten taldeak izango dira Uarkapen. ETC-prentsa

Aikidoa izango da aurtengo Arte Martzialen Eguneko ardatza. ETC-prentsa

Erretiratutakoan ondo kozinatzen ikasi nahi dut, igeri egin, euskara eta ingelesa ikasi, eta nire afizio nagusiarekin jarraitu: **aikido** arte martzialarekin. ETC-prentsa

Aikidoari eta judoari buruzko hitzaldia, eta ondoren erakustaldia. ETC-prentsa

Geroago Daito-Ryu Aiki Jujutsu praktikatu zuen (**aikido** deritzon estiloaren aurrekaria), Kotaro Yoshida irakaslearekin, eta Goju Ryu karate mota, So Nei Chu korearrarekin. ETC-entziklopedia

Morihei Ueshiba Japoniako **aikido** -irakaslea izan zen, arte martzial horren asmatzailea. ETC-entziklopedia

Bertan, ingeles klaseak eman zituen **aikido** , zen, budismo eta kendo klaseak ordaindu ahal izateko. ETC-entziklopedia

---

aiko-maiko **1** *iz* ezbaia, zalantza.

Haize-firfira ari zuen bere ohiko lan etengabean, gizakiek beren buruei ere aitortu nahi ez dizkieten gorabehera, **aiko-maiko** eta arrangurak zoli eta grinatsu harrotzen. Anjel Lertxundi

2 *adlag* ezbaiaz, zalantzaz.

Kezkati dabil orain fraide gaztea, **aiko-maiko** , ez baitaki zein apaletan, zein libururen artean kokatu lehentxeago saguzarrari kenduriko liburua. Josetxo Azkona

Baina Mael, **aiko-maiko** , hurbildu eta ahopeka esan zion: [...]. Joanes Urkixo

Estatu Batuak **aiko-maiko** dabiltza eta Iraken, berriz, beren bat-bateko planen aurkako jarrera gero eta handiagoa da. Berria - Mundua

3 ***aiko-maiko egon*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

-Bai -erantzun zuen neskameak, pixka batean **aiko-maiko egon** eta gero. ETC-literatura, saiakera

Aiko-maiko nago . ETC-literatura, saiakera

Beraz, karta irekitzen dut eta une batez **aiko-maiko egon** ondoren oilasko-entsalada aukeratzeko plantak egiten ditut. ETC-literatura, saiakera

Une batez **aiko-maiko egon** eta gero, lurrean bermatu zuen muturra; orain bai, gauaren bihotzean, barru-barruan, magal berean zegoen. ETC-literatura, saiakera

4 ***aiko-maikoetan*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Astigarragak bederatzi kapitulutan barrena bere ametsa garatzen zuen **aiko-maikoetan** galdu barik. ETC-literatura, saiakera

Beste isilaldi deseroso bat izan zen, sir Davidek **aiko-maikoetan** esan zuen arte. ETC-literatura, saiakera

5 ***aiko-maikotan***

Aiko-maikotan altxatu zen eta katilua eta koilaratxoa apalean ezarri zituen. Lopez de Arana

---

ailanto *iz* zuhaitz garaia, osto luzangak eta lore hori-berdexkak sortetan ematen dituena*(Ailantus altissima* edo *Ailantus glandulosa).*

Izen faltsua, ezbairik gabe: Espainiako hiri handienetan behintzat ez dago halako kalerik; gainera, nekez hornituko litzateke pasealekurik **ailanto** zuhaixkez, jakina baita kirats handia dariela haren fruituei. Iban Zaldua

---

ailara *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* zurezko edo metalezko zerrenda mehe eta luzea.

Xaflen ertzak eta **ailarak** oso zorrotzak ziren, eta agindu haiei esker lortu zuen Ramirok minik ez hartzea. ETC-literatura, saiakera

Theis Ibericak 70 langile inguru ditu; Basaurin du lantegia (Bizkaia), eta **ailarak** egiten ditu paketatzeko. ETC-prentsa

Ailarak jartzeko uhal garraiatzaile batek harrapatuta hil zen. ETC-prentsa

Ondo esanda, Tolarea etxearen garaiko ontziren baten upola bada, uztaiak ez, baizik eta **ailarak** . ETC-prentsa

Fanderietan burnizko pieza desberdinak lantzen ziren: flaskoak, **ailarak** ... Bestetik ere, burdina beste erabileretarako prestatzen zen. ETC-entziklopedia

ailatsu *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *izond* buztan luzekoa.

Akabuko urteetako afrontua aida baten trimindu eta aterrunean, andraize alatsu baizen **ailatsu** bihurtu gara sokorruka hasteko. ETC-prentsa

---

aileatu ik **ailegatu**.

---

ailedi *interj* nahia edo itxaropena adierazten duen partikula, 'oxala balitz'en kidekoa. ik **oxala**; **baldinbaitere**; **aileza**; **ailitz**; **ailu**; **aineza**.

Orain Korsikan da, hemendik oso urrun; **ailedi** hamar urtez han gera! Jon Muñoz

Azkazi guztiak hil dituxu, lurraldeak abandonatu, bazterrak zikindu, etxeko supazterra itzali - **ailedi** ez osotoro iraungia-. Jose Angel Irigaray

Bekatu horren barkagarri, **ailedi** liburu eder hau beste dozenerdi irakurle zororen mintegi. Markos Zapiain

Ailedi haragi zinez trinkoegi hau urtu, mehe-mehe eginik ihintz huts bilaka! Juan Garzia

---

ailegaera *iz* helduera, etorrera.

Kontrolatu azkarrenen ibilera, estropezu eginda muturrez aurrera eror ez daitezen; zaindu motelenen **ailegaera**, jantokitik kanpo geldi ez daitezen.Lainezek joan-etorri batzuk egin ditu hogei metroko tartean, aurrez ikusten dituen hiru **ailegaerei** adi. Xabier Mendiguren Elizegi

Haizea ere, zuzen-zuzen sartzen da toki batzuetan, haizebegi garbi eta enbarazu gabean; eta beste batzuetan, aldiz, zeharka, mendi edo kasko bat saihestuz, eta horregatik **ailegaera** ezberdina dizu, non jartzen garen...! Pello Zabala

Hala ere, Igorrek-eta **ailegaera** gorabeheratsuak dauden etapetan ahalegindu beharko dute, esprintean bukatuko direnetan jai dutelako. Berria - Kirola

Hurrengo hiru etapek ez dute nabarmentzeko zailtasunik, Spoletoko **ailegaerako** zirkuituan ezustekoren bat egon badaiteke ere. Berria - Kirola

Valgrande-Pajaresko **ailegaera** da gogorrena ibilbideari erreparatuta, lehen mailako bi mendate baititu. Berria - Kirola

Jan Svorada azeri zaharra izan zen bizkorrena **ailegaeran**, eta sasoiko bigarren garaipena lortu zuen. Berria - Kirola

Denbora bera egin eta garailea **ailegaeretan** lortutako puntuekin erabakitzen diren lasterketak ere ez dira gutxi. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **sei ailegaera** (3)

---

ailegarazi, ailegaraz(i), ailegarazten du *ad* ailegatzera behartu.

Egunkariko telefonariak arratsaldeko sei eta erdietan **ailegarazi** zidan semearen deia. Aingeru Epaltza

Biharamunean bai, akaso, nahiz eta horretarako nahitaezko baldintza izan Ttipik zorioneko txostena hitz eman bezala nire eskuetara **ailegaraztea**. Aingeru Epaltza

Jainkoak daki Auzitegi Nagusiraino **ailegaraziko** dugula. Fernando Rey

---

ailegatu *(ETCn **13.727** agerraldi; orobat **aileatu** g.er., **ailleatu** g.er. **aillegatu** g.er. eta **allegatu** g.er.)*, ailega(tu), ailegatzen **1** da *ad* iritsi, heldu.

Ailegatu eta berehala itzultzen zen Bilborantz. Joseba Sarrionandia

Berdin da, bihar goizean ahaztuko zaitut, eta trago luze bat edango dut, zu **ailegatu** arteko esperoa bezain luzea. Joxemari Iturralde

Etxera **ailegatzean**, ama negarrez topatzen nuen batzuetan, eta neure alboan lo egitera etortzen zen gauerdian, eta galdu behar banindu bezala besarkatzen ninduen lo egiteko, eskuaz tapatzen zuela aurpegia. Joseba Sarrionandia

Ailegatzean neuk amarratuko nuen txikota aihenean. Joseba Sarrionandia

Errekara **ailegatu** eta, mozkor mozkor eginda denak, berehala biluztuko zarete. Joseba Sarrionandia

Ailegatuko da gailurrera. Fernando Rey

Korridorera **ailegatu** orduko desagertua zen emakumea. Aingeru Epaltza

18 zenbakiraino **ailegatu** eta txirrina jo zuen. Joxemari Iturralde

Hizketan ari ziren bi gizonezkoen parera **ailegatu** nintzen Castiglione karrikan. Monika Etxebarria

Ailegatu berria ematen du. Rafa Egiguren

Horixe espero du Eta gehiago ere bai: sekula ikusi behar ez izatea Maddi burdinsare baten gibelean, ama edo aita akituek, Baionatik **ailegaturik** hamabortzean behin, bera ikusi ohi duten gisan. Xabier Montoia

Dendatik **ailegatu** berria behar zuen. Aingeru Epaltza

Ailegatu eta, konpasari begira geratuko zarete, Udako Hiriaren arrastorik ikusiko ez delako, dena elurpean. Joseba Sarrionandia

Ailegatu berritan, hizkuntza arrotz bat, hitz ostrogodoak, zer arraio nahi zuen nigandik? Fernando Rey

Ekialdeko sultana **ailegatua** zela ematen zuen. Fernando Rey

Gutxik uste zuten egun hori, euren etxeak harri pila bilakatuta ikusiko zituzten eguna, **ailegatuko** zenik. Edurne Elizondo

Aditzen du **ailegatzen** ari den treneko makina noiz sartzen ari den trenbide bakartuan. Fernando Rey

Ailegatzen ez ginela-eta, oso kezkatuta zegoen. Rafa Egiguren

Geroago postal bat **ailegatu** zen Korsikatik, Paolo Ferrariren goraintziekin. Fernando Rey

Esan nien ez nuela hogeita hamar marko, baina **ailegatzeko** zegoela anaiak bidali behar zidan dirua. Fernando Rey

Errepide nagusi aldera jo genuen, bostehun metro inguru falta zitzaizkigun **ailegatzeko**, eta Guardia Zibilaren postutik hurbil pasatu behar genuen. Rafa Egiguren

Mapa ikasi behar izan nuen toki hartara **ailegatzeko**. Fernando Rey

-Kristina **ailegatzekoa** da? Aingeru Epaltza

Biharamunean atera behar nuela bere etxetik, pertsona inportanteak zirela **ailegatzekoak** bidaztien alderdi hura sortzeko. Fernando Rey

Ailegatu zen trena. Fernando Rey

Ez zara inoiz inora **ailegatuko**. Fernando Rey

2 (gertaera edo kideko bat)

Denbora pasatu eta gaua **ailegatu** zen bere itzalekin batera. Fernando Rey

Negua hasita zegoen eta gabonak **ailegatu** ziren berehala. Joseba Sarrionandia

Ailegatu zen negu gorria. Fernando Rey

Gertaeren katea errepasatu eta 1975 urtera **ailegatu** naiz. Joseba Sarrionandia

Opor garaia **ailegatzen** zenean, gure aitak etxe bat alokatzen zuen, etxe bera beti. Fernando Rey

Alaitasunez idazten nituen, baita idazten nuena Italo Calvino nire adiskideari gustatzen zitzaiolako ere; hortaz, Italori bidaltzen nizkion, Italok bere argitaletxera bidaltzen zituen, eta gero diru pixka bat **ailegatzen** zitzaidan, gaur eguneko euroetan ziento bakar batzuk izanen zirenak. Pello Lizarralde

Beraz orduantxe **ailegatzen** ari zen bake unibertsalaren eta sozialismoaren aroa. Fernando Rey

Hogei urteko atzerapenaz nire txanda **ailegatua** ote zen, galdera horrexek erasan zidan, behin eta berriz, abuztuko asteazken horretako goiz amaigabean. Aingeru Epaltza

3 (adizlagun eta kidekoekin)

Egunero **ailegatzen** omen zen berriren bat. Rafa Egiguren

Berehala **ailegatu** zen nire txanda. Rafa Egiguren

Zalaparta polita atera duk, bart **ailegatzean**. Aingeru Epaltza

Goiz **ailegatu** nintzen arkupeetara, hogei gutxiagotan, eta bertan itxaron nuen, mamuen azpian. Joseba Sarrionandia

-Garaiz **ailegatuko** zaiguk behar den guztia. Fernando Rey

Berandu **ailegatu** nintzen hitzordura. Fernando Rey

Lagunen elkarrizketak gardenki **ailegatzen** zitzaizkion adimenera. Pedro Alberdi

Smithers andrea handik ordubetera **ailegatu** zen. Fernando Rey

-Ez larritu, ia **ailegatu** gara eta -Antton eta Maddalen txandaka saiatzen ziren bera lasaiarazten-. Joxemari Iturralde

Nekatuta eta estropezuka **ailegatu** nintzen Ikastetxera. Joseba Sarrionandia

Etengabean aldatzen da dena, lehenago ere esan dut, eta buruz lausotua baldin bazaude, orduan ez zara ohartzen noiz **ailegatzen** diren ilargi beteak. Fernando Rey

Horrexegatik gelditu nintzen iluntasuna noiz **ailegatuko**, noiz gautuko. Fernando Rey

Nabarmenegia duk inorat onik **ailegatzeko**, guztien begiak erakartzen baititu. Aingeru Epaltza

Etxauzen gutuna unerik aproposenean **ailegatu** zen. Aingeru Epaltza

Aitatxi kasik odolik gabe **ailegatu** zen otoitz-leku hartan apailatu ospitalera. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ailegatu ahal (4); **ailegatu ahal izateko** (4); **ailegatu arte** (24); **ailegatu aurretik** (12); **ailegatu baino** (7); **ailegatu behar** (10); **ailegatu berri** (5); **ailegatu berria** (10); **ailegatu berria zen** (3); **ailegatu berriak** (10); **ailegatu berritan** (4); **ailegatu bezain** (8); **ailegatu bezain laster** (5); **ailegatu bitartean** (3); **ailegatu da** (46); **ailegatu dela** (3); **ailegatu den** (5); **ailegatu dira** (19); **ailegatu diren** (4); **ailegatu eta** (65); **ailegatu eta berehala** (7); **ailegatu ez** (7); **ailegatu gabe** (3); **ailegatu gara** (13); **ailegatu garenean** (6); **ailegatu ginen** (27); **ailegatu ginen elkarrekin** (3); **ailegatu izanen** (3); **ailegatu izanen zen** (3); **ailegatu nahi** (7); **ailegatu naiz** (11); **ailegatu nintzen** (34); **ailegatu nintzenean** (17); **ailegatu nintzenerako** (5); **ailegatu ohi** (4); **ailegatu orduko** (11); **ailegatu zaigu** (4); **ailegatu zain** (4); **ailegatu zaio** (3); **ailegatu zaizu** (4); **ailegatu zara** (3); **ailegatu zela** (6); **ailegatu zen** (136); **ailegatu zen eta** (4); **ailegatu zenean** (24); **ailegatu zenetik** (5); **ailegatu zirela** (3); **ailegatu ziren** (82); **ailegatu ziren arte** (6); **ailegatu zirenean** (6); **ailegatu zitzaion** (5); **akordio batera ailegatu** (4); **aldera ailegatu** (4); **amaierara ailegatu** (3); **arratsaldean ailegatu** (3); **atzo ailegatu** (5); **atzo ailegatu zen** (3); **baina ailegatu** (3); **baino lehenago ailegatu** (5); **bat ailegatu** (17); **bat ailegatu da** (4); **bat ailegatu zen** (8); **batean ailegatu** (3); **batera ailegatu** (22); **batera ailegatu nintzen** (3); **batera ailegatu ziren** (5); **berandu ailegatu** (15); **berandu ailegatu eta** (4); **berehala ailegatu** (8); **berehala ailegatu ginen** (3); **berehala ailegatu ziren** (3); **berri ailegatu** (3); **bertara ailegatu** (3); **da ailegatu** (5); **dolarrera ailegatu** (5); **dolarrera ailegatu da** (3); **dolarretara ailegatu** (3); **dolarretara ailegatu zen** (3); **ere ailegatu** (9); **ere ailegatu zen** (4); **eta ailegatu** (5); **etxera ailegatu** (13); **etxera ailegatu eta** (3); **ez da ailegatu** (3); **gabe ailegatu** (6); **garaia ailegatu** (3); **goizean ailegatu** (3); **gu ailegatu** (3); **hartara ailegatu** (5); **helmugara ailegatu** (3); **herrira ailegatu** (6); **hona ailegatu** (3); **honaino ailegatu** (4); **hotsa ailegatu** (3); **inoiz ailegatu** (3); **izatera ailegatu** (7); **lehenago ailegatu** (8); **lehenago ailegatu ziren** (3); **momentua ailegatu** (3); **mugara ailegatu** (3); **ni ailegatu** (7); **nola ailegatu** (7); **ondora ailegatu** (5); **ondora ailegatu ginen** (3); **ondoren ailegatu** (3); **oraindik ailegatu** (5); **ordua ailegatu** (7); **ordua ailegatu da** (3); **parera ailegatu** (7); **plazara ailegatu** (4); **udaberria ailegatu** (3); **udaberria ailegatu da** (3); **urte ailegatu** (4); **zuen ailegatu** (5); **zuen ailegatu berriak** (3); **zuhaitzaren ondora ailegatu** (3)

---

ailegatze *iz* iristea, heltzea.

Eta salbamendu jakak jantzi eta bateletara **ailegatze** ariketak egingo dituzue. Joseba Sarrionandia

---

ailegatzear *adlag* ailegatzeko zorian.

Metroa Bayswater-era **ailegatzear** zegoen, beraz iritsiak ziren hotela zegoen auzora eta jadanik oso urruti zeuden Red Mountainetik. Joxemari Iturralde

Albo ilada agertu orduko konturatu da estazioko zuzenera **ailegatzear** dagoela. Pello Lizarralde

Ordurako etxera **ailegatzear** zegoen, hurrengo kale-kantoian ezkerrera hartu eta bizi zen kalean sartuko zen. Migel Angel Mintegi

Neskaren esku bat bere potxotxera joaten ikusten dut, eta klitorisa ferekatzen hasi da, **ailegatzear** dagoen orgasmoaren xerka. Juan Martin Elexpuru

---

ailеroi ik **aleroi**.

---

aileza *interj* nahia edo itxaropena adierazten duen partikula, 'oxala balu'ren kidekoa. ik **oxala**; **baldinbaitere**; **ailedi**; **ailitz**; **ailu**; **aineza**.

Eta azkenik, hari sinetsarazirik ezkongabe gelditzen zaion denbora gutxia bitartean baizik ez dukeela zilegi amodioaz gozatzea, **aileza** fiteago delibera amodiotik fitsik ez galtzea! Jon Muñoz

Aileza biziki maitatua izatearen segurantzak zure arima doi bat kontsola! Jon Muñoz

Aileza osasuna eta bihozberatasuna aldi berean berriz har, betiko egin zaitzan zoriontsu! Jon Muñoz

Aileza euskarak aski luzaz iraun, ikus dezagun, hautetsi euskaltzale baten mintzairarekiko politika! Itxaro Borda

Zeruak **aileza** bakea ekar, hala ere. Edorta Jimenez

---

ailitz *interj* nahia edo itxaropena adierazten duen partikula, 'oxala balitz'en kidekoa. ik **oxala**; **baldinbaitere**; **ailedi**; **aileza**; **ailu**; **aineza**.

Behar ez denen bat badugu; joko ustel baten susmoa dut: **ailitz** etorria jada gaua! Juan Garzia

Ailitz oraindik lehena!, bi hilabete atzera, besterik ez, hemen ezer aldatu ez duten bi hilabeteok, soilik; zergatik ezin da apirila izan!, eta gainerako guztia nire baitako haluzinazio bat. Joxe Austin Arrieta

---

ailleatu ik **ailegatu**.

---

aillegatu ik **ailegatu**.

---

ailorbe *iz* belar landarea, orri hiletsu eta hirunaka bilduak, lore zuriak eta leka hazi-horiak dituena, ganadu janaritzat

erabiltzen dena, eta bera jaten duten abereen esneari ahogozo berezi bat ematen diona *(Trigonella foenum-graecum).*

Baina nire abokatuak latinez ez baleki ere, **ailorbe**-gustua al zuen amaren bularretik edoski zuen euskarak? Anjel Lertxundi

---

ailu *interj* nahia edo itxaropena adierazten duen partikula, 'oxala balu'en kidekoa. ik **oxala**; **baldinbaitere**; **ailedi**; **aileza**; **ailitz**; **aineza**.

Edo ez **ailu** Betiraunkorrak ezarri buru-hilkintzaren aurkako araua! Juan Garzia

---

aimant *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* iman harria.

Niketz, beti pentsatu nahi izan dut **aimant** horren inguruan ez dela erakarpen-indarrik ahulena duena Axularrek liburua bilbatzeko erabili bide zituen iturriena. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aimara *(orobat **aimaratar**)* **1** *iz* Titicaca aintziraren inguruko lurraldeetan bizi den herri amerindio bateko kidea.

Herrialde osoko milaka **aimara** eta kitxua bildu ziren hiriburuan. Berria - Mundua

Ustelkeria eta nepotismoa leporatzen zieten **aimara** indiarrek. Berria - Mundua

Gainera, beti egoten dira mintegi eta mahai-inguruak **aimaratarren** edo ez dakit nongo beste herri txikietako hizkuntza eta kulturak aztertu eta defendatzeko. Hasier Etxeberria

2 (izenondo gisa)

Morales **aimara** da, Tihuanaco zibilizazioaren ondorengoen etniakoa. Jendetza handiaren aurrean Tiahuanaco zibilizazioaren energia hartzeko erritualarekin, izen bereko gurlekuan, bost amauta buruzagi erlijioso **aimarak** bedeinkatu eta "indiarren buruzagi nagusi" izendatu zuten. Berria - Mundua

3 *iz* aimara herriaren hizkuntza.

David Choquehuancak Atzerri ministro kargua hartzean **aimaraz** mintzatu zen. Berria - Mundua

Zazpi anai-arreben artean bigarrena da Ollanta izen horrek "guztia ikusten duen gudaria" esan nahi du **aimaraz**. Berria - Mundua

---

aimaratar ik **aimara**.

---

aimaritako *iz* Angelusaren ordua.

Gaur, bederatzi eta erdietan puntu-puntuan joko du **aimaritakoa**, eguzkiak bere buruari ipintzen baitio erretira. Pello Zabala

Ilunabarreko **aimaritakoa**, berriz, 45 minutu aurreratu du. Pello Zabala

Baina, nirekiko, ilargiaren esnatze-jaikitze eta bere **aimaritakoak**, denak dira kontuan hartu beharrekoak, baita zein kaletatik pasatzen den ere. Pello Zabala

---

aina ik **adina**.

---

ainar **1** *iz* txilarra.

UDAKO SOLSTIZIOAREN EGUNARI DAGOKION ZUHAITZA DA **Ainar** edo añarra, edo beste bailaratan inar edo ginar ere deitzen zaiona. Pello Zabala

Txilarra edo **ainarra** esaten zaio hemen. Berria - Kultura

Ainar mota asko diren arren, guri **ainar** zuria inporta zaigu. Pello Zabala

Gehien ikusten duguna, **ainar** gorria da, erleen gozamenerako loraturik irauten duena. Pello Zabala

2 ***ainar arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

"Calluna vulgaris" (**ainar arrunt** edo txilar arrunt ere deitua) hosto iraunkorreko zuhaixka da angiospermo loredun eta hazidunen barruan sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

3 ***ainar burusoil***

Ainar burusoil deritzana ere bada, hazia airetan hegaka joaten dena; ainar iletsua eta ainar kantauriarra erratzak egiteko erabili ohi dira; paraje batzuetan erratza edo erratz-txillarra ere deitzen zaio, lore horixka duen honi. Pello Zabala

4 ***ainar gorri***

Halere, gehien ikusten duguna, **ainar gorria** da, erleen gozamenerako loraturik irauten duena. Pello Zabala

5 ***ainar iletsu***

Ainar burusoil deritzana ere bada, hazia airetan hegaka joaten dena; **ainar iletsua** eta ainar kantauriarra erratzak egiteko erabili ohi dira; paraje batzuetan erratza edo erratz-txillarra ere deitzen zaio, lore horixka duen honi. Pello Zabala

6 ***ainar lauhosto*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Txilar lauhostoa edo **ainar lauhostoa** ("Erica tetralix") erikazeoen familiako zuhaixka adartsua eta bizikorra da. ETC-entziklopedia

7 ***ainar loretsu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Txilar loretsua edo **ainar loretsua** ("Erica multiflora") erikazeoen familiako zuhaixka adartsua da, 2,5 m luzea. ETC-entziklopedia

8 ***ainar purpura*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Ainar purpura ("Erica cinerea") erikazeoen familiako zuhaixka adartsua da, 15-60 cm luze dena. "Erica" generoko txilar espezie-mota bat da. ETC-entziklopedia

Bataz beste 1.000 metro baino gehiagoko altueran kokatura, kareharrizko eremu honetan txilar gorri, **ainar purpura** eta ezkaia baino ez dago. ETC-entziklopedia

---

ainara ik **enara**.

---

ainbat ik **bez**ainbat; **adinbat**; **hainbat**.

---

aineza *interj* nahia edo itxaropena adierazten duen partikula, 'oxala banu'en kidekoa. ik **oxala**; **baldinbaitere**; **ailedi**; **aileza**; **ailitz**; **ailu**.

Aineza nik neure behatzaren eskaintzeko ohorea, hain neska xarmantaren alde eta fabore...! Joan Mari Irigoien

Gaur Ziurtasun gaitzetsi behar, // hortaz, duda gaberik **aineza** // bistatik gal nik egin ametsa. Xabier Olarra

Aineza sakrifizio mingarri hori orain berean burutara eraman, eta batera ahantz sakrifizio horren nola kausa hala sujeta! Jon Muñoz

---

aingeru **1** *iz* erlijio katolikoaren, juduaren eta musulmanaren arabera, izaki espirituala, Jainkoaren eta gizakiaren arteko arartekoa.

Goi-goiko Errege goren eta zeruko Aitaren alaba eta mirabea, Jesu Kristo gure Jaun txit santuaren ama, Espiritu Santuaren emaztea: egiozu otoitz gure alde zeure Seme maite txit santu gure Jaun eta Maisuari, San Mikel goiaingeruarekin eta zeruko **aingeru** eta santu guztiekin batera. Askoren artean

Abiatu ziren, bada, mutila eta **aingerua** ; zakurra ere beraiekin joan zen. Elizen arteko biblia

Aingerua bidaliko dizut gida zaitzan, eta bota egingo ditut lurralde hartatik kanaandar, amortar, hitiar, periztar, hibiar eta jebustarrak. Elizen arteko biblia

Berdin izango da munduaren azkenean: **aingeruek** etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereiziko dituzte. Elizen arteko biblia

Bi **aingeru** ikusi zituen zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen tokian eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Elizen arteko biblia

Aingeruak , Jaunaren aginduz, zorroan sartu zuen bere ezpata. Elizen arteko biblia

Zaindari dago Jaunaren **aingerua** begirune diotenen inguruan, arriskuetatik ateratzeko. Elizen arteko biblia

Jainkoaren **aingeruak** deitu zidan ametsetan: "Jakob!" "Hemen nauzu!", erantzun nion nik. Elizen arteko biblia

Nahiz eta gizakien eta **aingeruen** hizkuntzez hitz egin, maitasunik ez badut, brontze soinulari eta ezkila tintinlari besterik ez naiz. Elizen arteko biblia

Dirudienez, gu, apostoluok, Jainkoak azken tokian jarri gaitu, heriotzara kondenatuak bagina bezala; ikuskizun bihurtu gaitu mundu guztiarentzat, bai **aingeruentzat** , bai gizon-emakumeentzat. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta kidekoekin)

Goretsia Jainkoa! Goretsia beraren izen handia! Goretsiak beraren **aingeru** santu guztiak! Elizen arteko biblia

Makabearraren aldekoek, Lisias gotorleku hura inguratzen ari zela jakitean, jende guztiarekin batera, hasperen eta negar artean, otoitz egin zioten Jaunari, Israel salbatzera **aingeru** ona bidal zezan. Elizen arteko biblia

Hala gertatuko da Jesus Jauna bere **aingeru** ahaltsuekin zerutik agertuko denean. Elizen arteko biblia

Atsekabetu egin zen Jauna kalte harengatik, eta agindu zion **aingeru** hondatzaileari: [...]. Elizen arteko biblia

Pertsia erreinuko **aingeru** zaindaria aurka jarri zait hogeita bat egunez, Mikael, **aingeru** nagusietako bat, laguntzera etorri zaidan arte. Elizen arteko biblia

Aingeru begiralea galdurik, alargun poetikoaren antzera abiatu beharko dut *a boca fechada e os ollos abertos, como un morte que mira a sua morte no espello.* Berria - Kultura

Aski da!" Ez zaiteztela marmarrean ari ere, haietako batzuk ari izan ziren bezala, gero **aingeru** suntsitzailearen esku hil zirelarik. Elizen arteko biblia

Jainkoak ez dio sekula inongo **aingeruri** esan: Eseri tronuan nire eskuinean: etsaiak oinaulkitzat jarriko dizkizut. Elizen arteko biblia

Jo zuen turuta lehenengo **aingeruak** , eta kazkabarra eta sua erori ziren lurrera, odolez nahasiak. Elizen arteko biblia

Hainbat aholku, zerbitzu eta **aingeru** begiralek inguratzen dituzte Baionako bestak. Herria

Klaustro gotikoaren Errege Magoen arkiboltan dauden hamar **aingeru** musikarien tresnak berriro egitea erabaki genuen. Berria - Kultura

Gau hartan bertan, Jaunaren **aingeruak** ehun eta laurogeita bost mila gizon jo eta hil zituen asiriarren kanpalekuan.

3 (hitz elkartuetan)

Bat-batean, zeruko **aingeru** -talde handi bat azaldu zen **aingeruaren** inguruan, Jainkoa goretsiz: [...]. Elizen arteko biblia

Jainkoaren gizon bat etorri zait; Jainkoaren **aingeru** -itxura zuen, zinez izugarria. Elizen arteko biblia

Satanasek berak argizko **aingeru** -itxurak hartzen baditu. Elizen arteko biblia

'Aingeru ahotseko' sopranoa . Berria - Kultura

7 irud/hed

Helduden igandean 11 etako mezatik lekura bortz **aingeru** bilakatuko dira Jainkoaren haur: Sacha Ousin, Peio Meneghetti, Jules Bonneel, Ainhoa Marie Loison, Elorri Caroline Loison. Herria

Baina, zinemak baino areago, Marlene Dietrich **aingeru** urdinak sorgindu zuen. Berria - Kultura

Bizi uros eta alaitsu bat bi **aingeru** sortu berrieri. Herria

Bizi zoriontsu bat Xan **aingeru** ttipiari. Herria

Suerte eta zorion ainitz sortu den **aingeru** ttipiari. Herria

5 ***aingeru-adats*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* kuia zatiak azukrean egosiz egiten den janaria.

Lorezainen azokak ikusi ditut, arrosak eta jasminak girlandatzen dituztenak urreizun eta **aingeru-adatsarekin** . ETC-literatura, saiakera

Aingeru-adatsa edo zirikilotea, zirikilote izeneko kuia-barietatearekin eta azukrearekin egiten den gozoa da, pastelgintzako betegarri gisa erabiltzen dena. ETC-entziklopedia

6 ***aingeru begirale***

Hainbat aholku, zerbitzu eta **aingeru begiralek** inguratzen dituzte Baionako bestak. Herria

Aingeru begiralea galdurik, alargun poetikoaren antzera abiatu beharko dut a boca fechada e os ollos abertos, como un morte que mira a sua morte no espello. Berria - Kultura

Aingeru begiraleak ekarri nau hona, haren eta nire zorionerako. Jon Muñoz

Nire bi **aingeru begiraleen** mehatxu eta laidoen arrosarioan, ni zikiratuta, pixa egiteko izanen nituen komeriak, halakoxea lasaigarriena. Aingeru Epaltza

Eta jaisten zen aingeru hura untzitik eta ur-bazterretik paseatzen ibiltzen ginen elkarren konpainian, zeren Rosa aingeru bat ere izan baitzitekeen, ene **aingeru begiralea** eta ongi egilea... Joan Mari Irigoien

7 ***aingeru-belar***

Asentzio-belarra osagai nagusi duela, zenbait belarrek - **aingeru-belarraren** sustraia eta abar- zaporea eta kolore berdea ematen zizkion gradu askoko likoreari deitzen zaio absenta. J.M. Olaizola "Txiliku"

8 ***aingeru erori***

Floren behar dut nik gaur hemen, moilan ikusi nuen **aingeru erori** hura nola gorrotatu behar dudan jakin nahi nuke. Koldo Izagirre

Bi pordiosero berritsu ziren, bi **aingeru erori** lurrean dandarrazka, zein bere berriketa-hariari lotua. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beste mutila deitzen dio euskarak **aingeru eroriari** , erromantikoek disidentziaren eredutzat zeukaten artearen deabru guardakoari; beste-besteka deitzen diogu mozorroen jolasari, besteen bizitzak antzezten saiatzeari. Anjel Lertxundi

Hortaz, ez du espero haiek **aingeru erorien** inguruan ezer jakitea edota Byronek gai horren inguruan non irakurri ote zuen antzematea. Oskar Arana

Bere silueta irudikatzen du, hormaren kontra itzal-antzerki txinatarra egiten duenaren erara, argal eta zuri, zeruak bidalitako **aingeru eroria** legez, hegal bustidun aingerua legez. Sonia Gonzalez

Zuengan eta zuengatik pozten dira aingeruak; izan ere, zeruko hirian **aingeru eroriek** hutsik utzitako lekuak, birjintasuna gordeko dutenek eta beren kastitateagatik distiratuko dutenek beteko dituzte zuei esker. Askoren artean

9 ***aingeru gaizto***

Aingeru gaiztoei ezin zaie inondik ere sortzaile deitu, beraien izenean magoek sugeak eta igelak sortaraziko balituzte ere Jaungoikoaren zerbitzariari aurre eginez; ez baitira haiek aingeruen sorkari. Imanol Unzurrunzaga

Iruzurrez azalduko gara, **aingeru gaiztoen** eta ezkutuko ehiztarien modura. Josu Zabaleta

Aingeru gaiztoa zeru-argiaz jantzi ohi da eta arima zintzoari arrazoia ematen hasten zaio, gero berearekin ateratzeko; alegia, pentsamendu zuzen eta santuak ekarri arima zintzoaren arabera, eta gero pixkanaka irteten saiatu, bere asmo zital ezkutu galgarrietara arima ekarriz. Patxi Altuna

10 ***aingeru guardako*** *(orobat **Aingeru Guardako** eta **aingeru goardako**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **aingeru guardako** agertzen da)* erlijio katolikoaren arabera, pertsona orok duen aingeru zaindaria. ik**aingeru jagole**; **aingeru zaindari**; **aingeru zaintzaile**.

Baliteke denok edukitzea **aingeru guardakoa** mundu honetan; aldrebesenak ere bai. Xabier Etxabe

Biktimarik ez egotearekin pozik agertu zen: "Antza, **aingeru guardakoa** gaur goizean ez zegoen greban". Berria - Harian

Zu, hor goian zauden hori, hain zuri eta zahar, **aingeru guardako** guztiak Zure inguruan dituzula eta izarrak ere ondoan jirabiraka dabilzkizula. Mirentxu Larrañaga

Beste zenbaitetan gertatu izan zaidanez, irudipena daukat **aingeru guardakoren** bat eduki behar dudala atzean. Berria - Kirola

Beti izan dut suerte handia, nire **aingeru guardakoa** primerakoa da, arras ondo zaindu nau beti. Karlos Zabala

Azken batean, eta arazoak arazo, ez zirudien **aingeru guardakoak** bazterrean utzi nahi ninduenik. Bernardo Atxaga

Aingeru Guardakoaren egunean, eguzkia ikusi baino, ardi artean otsoa ikusi nahiago. Pello Zabala

Aingeru Guardakoaren egunean, eguzkia ikusi baino, ardi artean otsoa ikusi nahiago. Pello Zabala

Aingeru Guardako egunean, behiak uztartu ez. Berria - Kultura

Aingeru Guardako egunean kukuak Erromako zubian jotzen du lehenbizi. Pello Zabala

Egia aitortu nion, baina modu intelektualean, **aingeru guardakoarena** aipatu gabe: [...]. Bernardo Atxaga

Eguzkia dagoen lekuen ondoan eseri eta betazalak itxita dastatuko ditut argia eta bizitza, **aingeru guardako** bat bezala izango naiz, disko-jogailuaren altabozak barruko patioetara aterako ditut bizilagunek nire bildumako kanturik leunenak entzun ditzaten, zoriontsu izango naiz aurpegirik ikusten ez diodan Harkaitz Cano

Legearen ertzaren bestaldean zeuden guztiei laguntza ematen zien **aingeru guardako** misteriotsu gisako bat zen Veronica. Harkaitz Cano

· Niri zegokidanez , berriz, aldean nuen ostera nire **aingeru guardakoa** , nire anaia, eta nire lagunik onena. Mirentxu Larrañaga

Ni izango naiz zure mediku pertsonala eta zure **aingeru guardakoa** . Joan Mari Irigoien

11 ***aingeru guardako arrunt***

Arriskuan ataletik hil edo biziko egoeran atalera pasatu da **aingeru guardako arrunta** . Berria - Gaiak

12 ***aingeru jagole*** aingeru zaindaria.

Neuk ere hartu dut esker onez nire aingeru **jagoleak** hor kokatutako kamioilariaren laguntza. Jon Arretxe

Aingeru **jagolerik** gabe geratu haiz, Sebastian -haserrez esan zidan ontziburu berriak. Edorta Jimenez

Aingeru **Jagoleen** egunean. Pello Zabala

13 ***aingeru-jauzi***

Hil zenez geroztik berrehungarren aldiz, Harryrengana bihurtu zitzaidan gogoa, eta hark handitasun betierekora egindako **aingeru-jauzi** itzelera. Oskar Arana

14 ***aingeru-lore*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Izenetik badu ilenak: baltsamo-belarra, **aingeru-lorea** , ebaki-belarra, hilerri-lili... ETC-prentsa

15 ***aingeru torrada*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Aingeru-torrada intxaur-saltsarekin edo mango-sorbetea? ETC-prentsa

Teknika hau batez ere, flan, budin edo **aingeru-torrada** prestatzeko, edo txokolatea urtzeko erabiltzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

16 ***aingeru zaindari***

Gero, **aingeru zaindaria** ikusi duzu zerutik jaisten. Elizen arteko biblia

Aingeru zaindari zerukoek gaitzatela anpara! Juan Garzia

Hori zela eta, ahal zuenak, dirua edo agintea zuelako, bere ‘**aingeru zaindariak** ” izaten zituen; edozein unetan edozeri aurre egiteko eta edonondik etekina edo harrapakina ateratzeko taldea antolatzen zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Konponduta gaude halako **Aingeru Zaindariekin** . Hasier Etxeberria

17 ***aingeru zaintzaile***

Iruaingo gazte hura Tobiasi lagundu zion Rafael haren parekoa zen, **aingeru zaintzailea** , bihoztuna eta argia. Bernardo Atxaga

18 ***aingeruen ogi***

Aingeruen ogia jan zuten gizakiek, Jainkoak janariz ase zituen. Elizen arteko biblia

Lurralde horietako mendietan zerutik jiten den ihintza xuriari **aingeruen ogia** deritzaio. Aurelia Arkotxa

19 ***aingeruen sexuaz hitz egin*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Eta ezin baldin bada, **aingeruen sexuaz hitz egingo** dugu, ez du-eta gizakiak egundo hori baino gai metafisikoagorik asmatu, ezta asmatuko ere. ETC-prentsa

Interes partikularren gainetik, euskara bultzatu, eta, ideologien gainetik, euskara sustatu, ez **aingeruen sexuaz hitz egiteko** , ezpada eguneroko gauzez eta zereginez, eguneroko kezkaz eta pozaz... horiek baitira hizkuntzaren arima eta muina. ETC-literatura, saiakera

20 ***aingerutan hil*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Los hombres intermitentes obran, autorik gabeko poetari irakurri nion anaia jaiotzean hil zitzaiola; aitak, orduan, hilobi gisako bat prestatu zuen baserri alboko pikondo baten azpian, eta amonak hantxe lurperatu zuen haurra, **aingerutan hildako** ninia. ETC-prentsa

Jaiotzarekin etorri zitzaion heriotza Francisco Javier Irazoki poeta lesakarraren anaiari, eta zorigaitzez **aingerutan hil** zen haur errukarria. ETC-prentsa

21 ***aingeruzko*** *izlag* aingeruei dagokiena; aingeruen nolakotasunak dituena.

Aingeruzko izakiek Jaungoikoarengan ezagutzen dute gauza bakoitzaren arrazoia, baina gizakiok ez; gizakiak, Sortzailearengana iristeko, lehenik gorputzezko gauzak ezagutu beharko ditu. Imanol Unzurrunzaga

Era berean, Jaungoikoari ez atxikitzea **aingeruzko** sorkarien akatsa dela esatean, argi eta garbi aitortzen dugu Jaungoikoarenganako atxikimendua dagokiola aingeruen izaerari. Imanol Unzurrunzaga

Zein eder, zein zoragarri eta aintzatsu agertzen zen Frantzisko bere bizi-inozentziaz, hitz-xalotasunaz, bihotz-garbitasunaz, Jainkoaren maitasunaz, anaien arteko karitateaz, obedientzia kartsuaz, besteenganako adeitasunaz, **aingeruzko** itxuraz. Askoren artean

Beti miretsi izan dut aitak gizajo horri telefonoz arreta hartzen zionean izaten zuen **aingeruzko** pazientzia. Josu Zabaleta

Bere lehengo lanbideak, irakasle errukarriarenak, **aingeruzko** pazientziaz hornitzen zuen. Karlos Zabala

· *(izenondo gisa)* Menditik jaitsi zen Frantzisko gizon **aingeruzkoa** , beregan Gurutziltzatuaren irudia eramanez. Askoren artean

Bere bizitzaren aldi hartan, amodioa zuen oinarri, amodioa helburu, eta hegal **aingeruzkoekin** hara-honaka zebilen bozkarioaren zeruan barrena. Patxi Zubizarreta

Kontua da Bartolome Izetak inoizko aingeru ahotsik **aingeruzkoenez** esan zuela goiz hartako Agur, Maria, eta denok ere inoizko Amen! Edorta Jimenez

22 ***mendiko aingeru-belar*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Mendiko aingeru-belarra ("Angelica sylvestris"), Apiaceae familiako landarea da. Sendabelar honek iparraldeko Europan jatorria du baina Pirinioetan ere agertzen da. ETC-entziklopedia

Orri handiko landare belarkarak ere ohikoak dira: larre-oloa, belarbeltza, urrebotoiak, zolda-belar txikia, **mendiko aingeru-belarra** , orein-mihia eta sorgin-iratzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aingeru ahaltsu (5); **aingeru ahaltsu bat** (3); **aingeru aurpegi** (3); **aingeru aurpegia** (4); **aingeru bat** (59); **aingeru bat agertu** (6); **aingeru bat bezala** (4); **aingeru bat ematen** (3); **aingeru bat etorri** (3); **aingeru bat ikusi** (5); **aingeru bat zirudien** (3); **aingeru batek** (18); **aingeru baten** (21); **aingeru baten aurpegia** (3); **aingeru batena** (8); **aingeru batena zirudien** (3); **aingeru bati** (4); **aingeru begiralea** (5); **aingeru begiraleak** (3); **aingeru beltza** (3); **aingeru eder** (3); **aingeru ederra** (3); **aingeru epaltza** (24); **aingeru epaltza eta** (4); **aingeru epaltzak** (4); **aingeru epaltzaren** (5); **aingeru eta** (21); **aingeru eta santu** (3); **aingeru guardako** (12); **aingeru guardako egunean** (3); **aingeru guardakoa** (12); **aingeru guardakoak** (3); **aingeru guardakoaren** (4); **aingeru guztiak** (4); **aingeru guztien** (3); **aingeru hark** (3); **aingeru hori** (5); **aingeru hura** (4); **aingeru ikusi** (3); **aingeru jauzi** (3); **aingeru maitea** (3); **aingeru ona** (3); **aingeru onak** (4); **aingeru pausoekin** (3); **aingeru santu** (3); **aingeru santuen** (5); **aingeru talde** (11); **aingeru talde handi** (3); **aingeru tancredi** (7); **aingeru ttipiari** (8); **aingeru ttipieri** (3); **aingeru zaindari** (4); **aingeru zaindaria** (3); **anai aingeru** (9); **bat bi aingeru** (3); **batean aingeru** (3); **bere aingeru** (5); **beste aingeru** (11); **beste aingeru bat** (7); **bi aingeru** (12); **bi aingeru ttipieri** (3); **da aingeru** (5); **den aingeru** (5); **den aingeru ttipiari** (5); **ene aingeru** (5); **eta aingeru** (32); **eta aingeru epaltza** (3); **ez aingeru** (7); **gure aingeru** (3); **haren aingeru** (4); **jainkoaren aingeru** (9); **jainkoaren aingeru batek** (3); **nire aingeru** (8); **nire aingeru guardakoa** (6); **nuen aingeru** (4); **sortu den aingeru** (5); **zen aingeru** (9); **zeruko aingeru** (6); **ziren aingeru** (3); **zitzaion aingeru** (3); **zuen aingeru** (5); **zure aingeru** (4)

aingerua agertu (13); **aingerua agertu eta** (3); **aingerua agertu zitzaion** (8); **aingerua aurreratu** (3); **aingerua bezala** (4); **aingerua bidali** (11); **aingerua bidali du** (4); **aingerua bidali zuen** (3); **aingerua bidaliko** (5); **aingerua bidaliko du** (3); **aingerua ere** (3); **aingerua eta** (8); **aingerua ikusi** (5); **aingerua izan** (6); **aingerua izan zela** (3); **aingerua zain** (3); **aingerua zela** (5); **aingeruak berak** (3); **aingeruak bere** (3); **aingeruak bezain** (3); **aingeruak bezala** (3); **aingeruak deitu** (3); **aingeruak deitu zidan** (3); **aingeruak erantzun** (15); **aingeruak erantzun zidan** (3); **aingeruak erantzun zion** (8); **aingeruak ere** (4); **aingeruak esan** (34); **aingeruak esan zidan** (3); **aingeruak esan zion** (24); **aingeruak esan zuen** (4); **aingeruak eta** (15); **aingeruak etorri** (4); **aingeruak jaun** (3); **aingeruak jaun ahalguztidunaren** (3); **aingeruaren eskutik** (3); **aingeruari galdetu** (4); **aingeruari galdetu nion** (4); **aingeruei aginduko** (3); **aingeruei aginduko die** (3); **aingeruei eta** (4); **aingeruek ere** (6); **aingeruek eta** (5); **aingeruekin hitz** (6); **aingeruekin hitz egiten** (3); **baina aingeruak** (5); **baina aingeruak esan** (4); **baina jaunaren aingeruak** (3); **bere aingerua** (6); **bere aingerua bidaliko** (3); **bere aingeruak** (3); **bere aingeruei** (3); **bere aingeruei aginduko** (3); **bere aingeruekin** (3); **da aingerua** (4); **egin zen aingerua** (3); **eliz elkartearen aingeruari** (7); **elkartearen aingeruari** (7); **ene aingerua** (9); **eta aingerua** (12); **eta aingeruak** (23); **eta aingeruaren** (4); **eta aingeruek** (3); **eta jainkoaren aingeruak** (6); **eta jaunaren aingeruak** (4); **etxetako aingeruak** (3); **ez da aingerua** (3); **gabriel aingerua** (3); **gabriel aingeruak** (6); **gure etxetako aingeruak** (3); **jainkoaren aingerua** (21); **jainkoaren aingerua agertu** (4); **jainkoaren aingeruak** (14); **jainkoaren aingeruak deitu** (3); **jaunaren aingerua** (39); **jaunaren aingerua agertu** (9); **jaunaren aingerua ikusi** (3); **jaunaren aingeruak** (40); **jaunaren aingeruak erantzun** (3); **jaunaren aingeruak esan** (11); **jaunaren aingeruari** (4); **lehen aingerua** (3); **nire aingerua** (3); **rafael aingerua** (3); **rafael aingeruak** (3); **zazpi aingeruak** (3); **zen aingerua** (7); **zen jaunaren aingerua** (3); **zeruko aingeruak** (5); **zeruko aingeruek** (4); **zion aingeruak** (4); **zion aingeruari** (4); **zitzaion aingerua** (3); **zizkidan aingeruari** (4); **zizkidan aingeruari galdetu** (3); **zuen aingeruak** (7); **zure aingeruak** (3)

aingeruen andre (5); **aingeruen andre maria** (4); **aingeruen artean** (4); **aingeruen aurrean** (6); **aingeruen bizitza** (5); **aingeruen eta** (6); **aingeruen eta deabruen** (3); **aingeruen hizkuntza** (4); **aingeruen hizkuntzez** (3); **aingeruen hizkuntzez hitz** (3); **aingeruen ogia** (3); **aingeruen pareko** (3); **aingeruen santa** (43); **aingeruen santa maria** (8); **aingeruen santa mariako** (7); **aingeruen santa marian** (7); **aingeruen santa mariara** (19); **aingeruengan ere** (3); **aingeruren bat** (3); **eta aingeruen** (21); **eta aingeruen hizkuntzez** (3); **eta aingeruen santa** (5); **gizakien eta aingeruen** (5); **ia aingeruen** (3); **jainkoaren aingeruen** (3); **zazpi aingeruetako** (4); **zuen aingeruen** (5); **zuen aingeruen santa** (5)

---

aingeruburu *iz* aingeruen burua.

Ez gara subjektu ezagutzaile hutsak (**"aingeruburu** hegaldun soingabe"), zintzilika dugula gorputz arrotz bat, gorputz biziak baizik. Askoren artean

---

aingerukeria *iz* tolesgabetasun gehiegizkoa, ia inozokeria agertzen duen egitatea.

Haatik, **aingerukeria** eta sadismoa pozik daude indarkeriaren gaiztoaz kalakari, zauria benetan sendatzen ahalegindu barik, alegia, elkarrizketari, negoziazioari eta erreforma politikoei ekin gabe. Markos Zapiain

Rousseauk garbi nabaritzen du agintearen bila dabiltzanen bultzatzaile nagusia ez dela "herria zerbitzatzea" edo antzeko **aingerukeriaren** bat, "manatzeko plazera" baizik. Markos Zapiain

Gezurrezko utopia ebanjelikoekin eta **aingerukeriekin** geure buruak engainatzen ibili gabe. Joxe Azurmendi

Iruditzen zait, demokrazia sakralizatu duen (eta, beraz, jada politika bezala ulertzen ez duen) **aingerukeria** edo inuxentekeriatik bakarrik uler daitezkeela objekzio horiek. Joxe Azurmendi

---

aingerutar *(orobat **aingerutiar**) izond* aingeruzkoa.

Sudur-bidean sentitzen den lurrin **aingerutiar** hegalaria mintzetatik barna biriketaratzea... izadiak dituen plazer maitagarrienetakoak dira apirilaren hauek, zalantzarik gabe. Pello Zabala

Figura **aingerutarraren** gorputzari zerion lurrina usaindu ahal izan zuen. Unai Iturriaga

Barrabilak goxo igurtziz, bisaian keinu **aingerutar** bat irudikatu zitzaion. Unai Iturriaga

Zeru hain urdinerantz begira gelditu ginen guztiok, espazioan zuloren bat aurkitu nahian bezala, aterpe **aingerutiarren** bat. Karlos Linazasoro

Menditik jaitsi zen Frantzisko gizon **aingerutarra**, beregan Gurutziltzatuaren irudia eramanez. Askoren artean

Geroago, denbora igaro ahala, gizon **aingerutar** hau Jainkoaren graziak gero eta aurrerago eraman zuen bertutez bertute, zeruko dohainetan, jainkozko goi-altxatze eta estasi-aldietan. Askoren artean

Baina, zer gaixotasun egon zitekeen emakume ia **aingerutar** haren psikean? Juan Kruz Igerabide

Gustatuko zitzaiokeen, erlijiosoa ez izan arren, erromantizismoz, Karitateko lekaimeak **aingerutarrak** zirela sinestea. Josu Zabaleta

---

aingerutasun *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi) iz* aingeru izatearen nolakotasuna.

"Lehen **aingerutasuna** bilatzen zen, eta aspergarria zen, baina animaltasunaren bilaketak ere niri barre egiteko gogoa ematen dit", komentatu du Peillenek. ETC-prentsa

Nik ondo nekien, baina, zein partetakoa zen haren **aingerutasuna**. ETC-literatura, saiakera

Aikejoderse bat ere bota zuen, ez oso zerutiarra baina zeruak ez omen zeukan **aingerutasunarekin** zerikusirik. ETC-literatura, saiakera

Espirituek berriro naturismo "garbi" (puru) delikatua, birfintasun berri bat, zetazko **aingerutasun** eta subkontzienteko deabrutasunak, arabeskoak, japonaiseriak, arimako sekretuak, misterioa, psikoanalisia, parapsikologia dute gose. ETC-literatura, saiakera

TXAPAS.- Txapas! Atzeko aldean esan dut, ez ezkutuan! Etorri aurreraxeago! Azaldu jendeari zure **aingerutasuna** , Jainkoaren berri onaren zabaltzailea zara eta! ETC-telebista

---

aingerutiar ik **aingerutar**.

---

aingerutu, aingeru(tu), aingerutzen da *ad* aingeru bihurtu.

Herrestaren ustegabeko azalpenak burla-gogoa hazi zion, fedeak tanpez **aingerututako** Kastelari. Itxaro Borda

Aingerututa ibili naiz geroztik, ia lurrik ere ukitu gabe, zorionaren hegadan. Hasier Etxeberria

Natura **aingerutu** hori natura hila besterik ez daiteke izan; besterik da lurra edo mendia bere on-gaitzekin. Iñaki Segurola

---

aingerutxo 1 *iz adkor/irud* pertsona ona -eskuarki ironikoki erabilia-.

Orain 29 urte ditu eta **aingerutxo** bat da. Gotzon Garate

Portuko nagusia haizen **aingerutxo** hori, azal hadi zazpigarrenaren moilara bortz eta erdietako tutuak jo baino lehen eta sosegatuko haugu. Koldo Izagirre

Aingerutxo bat Robespierre, zuen ondoan! Joan Mari Irigoien

Zerbait egindakoa izango zela Hans famatu hura eta ez zela **aingerutxo** soil bat izango, alegia. Hasier Etxeberria

Zerbait egindakoa izango zela Hans famatu hura eta ez zela **aingerutxo** soil bat izango, alegia. Hasier Etxeberria

Sendagileak eta haurtzainak xoraturik zeuden haurrarekin eta aho batez esan zuten lehenago bakan ikusi zutela horrelako **aingerutxo** ederrik. Gotzon Garate

Ene **aingerutxo** gaixoa. Mirentxu Larrañaga

Horiek entzunda pentsatu beharko genuke mutil guztiak zikin huts nekaezinak direla, eta neskak, berriz, **aingerutxo** garbiak, printze urdinaren zain. Luis Elberdin

Zazpi emakume haiek ez ziren haragizkoak, Parnasoko zazpi musak baizik, idazleon **aingerutxo** salbagarriak. Karlos Linazasoro

Eutsi, ene **aingerutxoa**, eutsi; gogoratu oinazeen bidez heltzen dela atseginetara beti. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ea bada, gure **aingerutxoa**, konbentzitu al zaitugu? Utzi al diozu sodomia krimena dela pentsatzeari?. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eugeni, korritu, ene **aingerutxoa**, korritu zaitez... bai, isurtzen ari da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aingerutxook noski, badakit gehienak, Erdi Aroko erromes giroaz geroztik bertakotu diren orotariko jitoeria alfer, pestazale, negarti, teatrero, eskazale haien ondorekoen ondorekoak ditugula. Patziku Perurena

Baina gaur egungo Prokustoen aldean, Grezia zaharreko Prokusto hura **aingerutxo** bat zela begitantzen zait niri. Joxerra Garzia

Ez, noski, zure moduko **aingerutxoei** sekula ez zaie ezer txarrik sartzen buruan! Xabier Paya

Hiru **aingerutxoak** lotan ohean. Julen Gabiria

Eta bera nire ondoan, **aingerutxo** bat bailitzan, lo seko. Jasone Osoro

Zazpi urte baino ez zituen, **aingerutxo** bat bezala hil da. Joseba Urteaga

Ozta-ozta bi urteko haurtxoa izan arren, aho txiki gorrikoa, begi handi eta bekain luzekoa eta, **aingerutxo** baten antzeko ile-kizkurra. Koldo Biguri

Osasun, bizi luze, **aingerutxoeri**, zorionak eta ohore buraso balioseri. Herria

Irtenbide onena, hala ere, sendagile "klandestino" bat edo **"aingerutxo**-sortzaile" izen ederreko emakume bat aurkitzea zen. Joseba Urteaga

2 aingeru txikia.

Harrizko **aingerutxo** potolo batzuek eusten zieten balkoietako barandei. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**
> **ene aingerutxoa** (3); **{3 aingerutxo bat** (10)

---

aingerutzar *iz adkor* tamaina handiako aingeru irudia.

Eta oraindik ere morroi zintzoa zen eskailera ondoan zegoen marmolezko **aingerutzar** hura, atea zabaldutakoan itzuli erdia egiten zuen ipurdia emanez, Soteroren ahotsa etorri zitzaidan "Ohera eraman nahi hau" esanez, ozta ez nuen barrerik egin. Koldo Izagirre

---

aingeruzko ik **aingeru 5**.

---

aingira *(orobat **angira**)* **1** *iz* suge itxurako arraina, luzea eta azal-labaina, Europako ibaietan bizi eta Sargazo Itsasora joaten dena ugaltzera *(Anguilla anguilla).*

Aingira, ukitzen zutela sentitu bezain laster, kiribildu egiten zen bere baitan, korapilo arinetan, aska mehar hura bere espiralen kolore berde distiratsuez betetzen zuela. Louiseren amak oraindik kontatzen zuen nola iritsi zen Parisa, saski bat **aingira** besapean. Karlos Zabala

Arrain saltzaileak ziren; zaharrena liluragarria zen; gazteak ur gezatako arraina saltzen zuen eta Murilloren ama birjina baten antza zuen, horail-horaila, bere zamo eta **aingiren** artean. Karlos Zabala

2 (izenondoekin)

Deitu egin zion, enkantean guztien harridura piztu zuen **aingira** handi bat erakusteko. Karlos Zabala

Aingira txikiak denak batera erortzen ziren saskietatik konpartimentuen hondora, suge korapilo moduko hura desegin gabe; **aingira** handiak, aldiz, ume baten besoa bezain lodi, burua jaso eta bakarrik lerratzen ziren ur azpira, sasi artean gordetzen diren sugeen abiada zaluan. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan)

20 etan **angira** jatea Bidart trinketean. Herria

19.30 etan aperitifa eta **angira** jatea. Herria

Igandean Trinitateko Meza 9 orenetan, Birla zoingehiagoka 10,30etan eta eguerditan **Angira** janaldia telazko aterbe azpian. Herria

Apirilaren 24 an, aratseko 8 etan **angira** afaria Paota ostatuan. Herria

6ak eta erdietan Kantaldia, Magali Zubiaga-rekin eta aratsean **Angira** afaria. Herria

4 ***aingira belar***

Gozoenak ez dakit, baina zinez gustagarriak ziren patatak, itsasoko **aingira belarretan** egosiarekin eta bertako ardo lodiz ondo lagundurik ekarri zizkigutenak. Edorta Jimenez

Beherago urmael bat zegoen, **aingira-belarrez** estalia, zeren hori, bestetik, ez da batere bitxia Errusiako lurjabeen lorategi ingelesetan. Jose Morales

5 ***aingira elektriko*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Aingira elektrikoak bere tximista zirriaz huasai palmondoa, Euterpe oleracea, zirikatu eta dardarizoaz fruta botarazten dio. ETC-prentsa

Zer dela eta iruditu behar zaizkigu bitxiagoak gizaki hiztunak, elefanteak, pinguinoak, kastorrak, gameluak, kriskitin-sugeak, kolibriak, **aingira elektrikoak**, intsektu hosto-imitatzaileak, sekuoia erraldoiak, edo buruan lanterna itsatsirik daramaten arrain abisalak baino? ETC-zientzia, zuzenbidea

Aingira elektrikoetan (Electrophorus electricus), adibidez, aho-barrunbea da airean arnasteko organoa, eta beste zenbait espezietan operkulu-barrunbea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nire baitan, hala ere, **aingira elektriko** bat bihurka zebilen: errua? ETC-literatura, saiakera

Galvani-ren esanak baliogabetzeko bere ahalegin zabalean, Volta-k aztergai hartu zuen **aingira elektrikoa**, zeinak, froga daitekeenez, zinez sortzen baitu elektrizitatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aingira elektrikoaren aho-barrunbean gas-trukea gerta daiteke, eta baita Loricariidae, Callichthyidae eta Scoloplax Scoloplacidaeen digestio-hodian ere. ETC-entziklopedia

6 ***aingira more*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Uretako otsoak gorputza zilindro baten eitekoa du gorputzaren lehen zatian, aingirak, itsas aingirak edo **aingira moreak** duen gisan, eta txapalagoa bigarren zatian. ETC-literatura, saiakera

Aurreko kristal lausotik krustazeo lotsati bat ikusi du hondarrean erdi gordea eta, gero, **aingira more** baten buru beldurgarria haitzarte batetik zelatan. ETC-literatura, saiakera

7 ***itsas aingira*** *iz* aingiraren antzeko itsas arraina, ezkatarik ez duena *(Conger conger).*

Itsas aingira, kolore urdin lokaztuko suge lodi hori, begi txiki beltzak buruaren alde banatan, hain likatsua, ezen bizirik dagoela eta narrasean dabilela pentsarazten baitio ikusleari. Karlos Zabala

Itsas aingirak, xerrak markatzeko balio duen orratz beltzarekin ziztatuak. Karlos Zabala

Harik eta **itsas aingirak** ate aurrean lehortzen zeuzkan etxe txiro batera iritsi ginen arte. Edorta Jimenez

Gizon batek arkaitz zilo batetarik atera du, oren erdi bat segurik borrokatu ondoan, alimaleko **itsas-aingira,** mota hortako arrain guti ikusten baita hein hortakoa denik! pentsa, 38 kilo pisu, ez baita harritzeko holako arraina ezin menperatuz azkarki penatu behar izan bada ere gure gizona...! Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aingira afaria (3); **aingira bat** (4); **aingira eta** (3); **aingira jatea** (13); **aingira jatea ostatuetan** (5); **aratsean aingira** (3); **eta aingira** (3); **itsas aingira** (3); **itsas aingirak** (3)

---

aingura 1 *iz* burdinazko atala, bi besoz hornitua, kate batetik zintzilik uraren hondora egozten dena, han finkaturik ontzia higitzea eragotz dezan.

Aingura hartu eta ibaira bota nuen. Josu Zabaleta

Gizonezkoek lanean erabiltzen zituzten kanta haietako bat dela; taldekoa alegia, meatzariek harria pikatzerakoan, edo basamutilek enbor bat zerratzean, edo marinelek **aingura** altxatzerakoan, oihu batean kantatzen zutena. Bernardo Atxaga

Aingura bota, eta itsasertzean onik lurreratu ziren. Juan Kruz Igerabide

Ekaitza izugarri indartsu jotzen ari zen, eta bizitza salbatzeko ere zalantzaz, **aingurak** bota zituzten. Askoren artean

Magala egiten zitzaien belei haizearen eraginez, baina guztiz geldirik zegoen, **aingura** botata baino lotuago. Anjel Lertxundi

-Behera zapiak, prest **aingurak**. Edorta Jimenez

-Gora **aingura** ! -aldarri egin zuen ahots eztizkoaren albokoak. Edorta Jimenez

Belak zabaldu, gora **aingura** , / gu gara piratak, hara! Julen Gabiria

Aingura igo, haizeari zapi bat eman, eta hantxe abiatu ginen, astiro, airos eta uraren gainean harro. Edorta Jimenez

Hantxe geratzen ginen, harik eta ia itsasaldi bitartea ailegatzen zen arte, eta orduan **aingura** jaso eta etxera abiatzen ginen. Koro Navarro

Gero karelean ikusi dut, **aingura** hori jasotzeko ahaleginetan. Joseba Sarrionandia

Gero, zarata isil bat, **ainguraren** kateen karranka eta, pixkanaka-pixkanaka isiltasuna. Lopez de Arana

Labana hortzetan hartuta igo nintzen kubertara **ainguraren** katean goiti, estiborreko amuratik. Koldo Izagirre

Burdinsareak, burdinesiak eta ateak egiteari utzi, eta segak, igitaiak, aizkorak eta **aingurak** egiten hasi zen. Joan Mari Irigoien

Sirteko hondar-metaren batean hondoa jotzeko beldurrez, **aingura** flotagarria bota eta noragabe jarraitu zuten. Ordezko **aingura** batekin zeozer egiten ari zela ikusi dut baina ez diot garrantzirik eman, ez naiz konturatu katea ebakitzen ari zela. Elizen arteko biblia

Izotz **aingurak** botako dituzue, bi istriborrean, bat popan, eta bana ababorrean eta brankan. Joseba Sarrionandia

2 irud/hed

Ez zuten autismotik atera, baina **aingura** eman zioten hizkuntzarako eta komunikazioarako ahalmen eskuratu berriek, lehenago kaos erabatekoa izandakoa menderatzeko trebetasuna, hein batean. Xabier Olarra

Han zeuden dirua eta Kurten helbidea: pasaporte eta permeso di soggiorno faltsuekin batera, mundura lotzen ninduten **aingura** bakarrak. Anjel Lertxundi

Itxaropen hau geure bizitzaren **aingura** tinko eta segurua dugu, zeruko santutegi barruraino sartzen dena. Elizen arteko biblia

Nahi ukan zituen oroitzapenak ahantzi, baina bere oroimenari **ainguraz** loturik bezala zeuzkan, eta gaztearen presentziak kolera areagotu zion... bai eta damuak ere. Elena Touyarou

Haien fedearen sendotasuna eta itxaropenaren **aingura** irmoki Kristogan finkatua. Askoren artean

Emakumea bizitzarekin lotzen duten **aingura** dira seme-alabak. Berria - Gaiak

3 *aingura altxatu*

Eta Deskribatzen hasita -D-raino iritsiak baikara dagoeneko- zera aipatu behar lehenik, XIX. mendean aurrera -makinak iritsi arte- gizonezkoek lanean erabiltzen zituzten kanta haietako bat dela; taldekoa alegia, meatzariek harria pikatzerakoan, edo basamutilek enbor bat zerratzean, edo marinelek **aingura altxatzerakoan** , oihu batean kantatzen zutena. Bernardo Atxaga

Beste enbarkazio batean **aingura altxatzen** ari ziren, itsas belarrak eta lapak nabaritzen ziren kate handian itsatsirik, eta urpeko beste animalia txiki batzuk beren burua airean sentitzean jauzten ziren uretara. Joseba Sarrionandia

4 *aingura bota*

-Arraioa! -erantzun zuen ahotsak-, esan hori berriro, eta **aingura botako** dizut gainera. Julen Gabiria

Bada, aterkiak zekartzan ontziak badian **aingura botatzea** egin zuen, eta bazkalondo hartan bertan euri mehe bat hasi zuen; gozo-gozo segitu zuen... aterki guztiak saldu zituen arte. Pablo Sastre

Zaindariak lehenago diru putzuz koipeztuak izanagatik, aise lortu zuen hiritik atera eta hondartzara joatea, han zain baitzeuzkan lagunak, txalupa batez itsasoan **aingura botata** zegoen Ainhoa izeneko itsasontziraino eraman zutenak. Felipe Juaristi

Magala egiten zitzaien belei haizearen eraginez, baina guztiz geldirik zegoen, **aingura botata** baino lotuago. Anjel Lertxundi

Itsasontziko kapitain ingeles bati Eringo erbesteratua irakurria zuen galdetu ziotenean, honela erantzun zuen: "Ez, jauna, baina gustatuko litzaidake hantxe **aingura botatzea** ". Xabier Olarra

Orduan, harkaitzen batean jotzeko beldurrez, lau **aingura bota** zituzten txopatik, eta eguna argitzeko irrikatzen zeuden. Elizen arteko biblia

Aingura bota , eta itsasertzean onik lurreratu ziren. Juan Kruz Igerabide

Soka bat gerrira lotuta zuela konturatu naizenean arineketan heldu naiz, baina **aingura botatzea** lortu du eta orduan ainguraren indarrarekin jauzi da.'. Joseba Sarrionandia

5 *aingura jaso*

Hantxe geratzen ginen, harik eta ia itsasaldi bitartea ailegatzen zen arte, eta orduan **aingura jaso** eta etxera abiatzen ginen. Koro Navarro

Strömgo parterik txarrena itsasaldien artean egiteko asmoa hartuta, zazpiak-edo izango ziren -nire erlojuan-, **aingura jaso** eta etxerako bidea hartu genuenean, bai baikenekien zortzietan izango zela itsasaldi bitartea. Koro Navarro

Arean Tajo ibaian **aingura jaso** eta zapiak puztu zirenez geroztik beste bat zelako gure karraka, esan nahi baita, karelen artean dena zela anabasa, dena birao eta agindu. Edorta Jimenez

Patriziok hamabi orduz itxaron zion kaian, **aingura jasota** , partitzeko prest, baina Gustavo agertu ez, eta, haizea galdu beldurrez, abian jarri ziren. Felipe Juaristi

6 *aingurak altxatu* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Aita itsas arkitektoa zen, eta, ni jaio berritan, **aingurak altxatu** eta munduari bira emateari ekin genion 15 urtez. ETC-prentsa

Biharamunean **aingurak altxatu** eta borrokarako formazioan jarri ziren etsaiek euren kontra itsaso zabalera irten nahi bazuten ere, eta, hori gertatu ezean, eurek haiei barruan erasotzeko asmoz. ETC-literatura, saiakera

7 *aingurak bota*

Izotz **aingurak botako** dituzue, bi istriborrean, bat popan, eta bana ababorrean eta brankan. Joseba Sarrionandia

1. Marinel batzuk hondora joateko arrisku larrian aurkitzen ziren, Barlettako portutik hamar miliatara; ekaitza izugarri indartsu jotzen ari zen, eta bizitza salbatzeko ere zalantzaz, **aingurak bota** zituzten. Askoren artean

8 *aingurak egotzi* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

1799. urtean, Amasa Delano kapitaina, Duxburykoa (Massachussetts), itsas txakurren ehizan eta orotariko merkataritzan ziharduen ontzi handi bateko burua, **aingurak egotzita** zegoen, zama baliotsu batekin, Txileko itsasbazter luzearen hegoaldeko mutur aldean, Santa Maria uharte huts, txiki, mortuko portuan. ETC-literatura, saiakera

9 *aingurak jaso*

Bertan gelditzeko maniobra egiten ari ote diren, edo, aitzitik, **aingurak jasotzen** ote dituzten, antsietatearengatik jaiotako uste funtsgabeak dira, erregeari erantzuna ematera haraino joan baino lehen itsasontziak ez baitira higituko. Jon Alonso

Baina azkenean, maiatza hurbiltzen ari zenean, Mendebaldeko Kapitainek bideari ekin zioten berriro: **aingurak jaso** zituzten Cair Androsen, Anduinen uretan behera abiatu eta Osgiliathera jaisteko: bertan egun bat egin zuten. Agustin Otsoa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aingura bat (4); **aingura bota** (3); **aingura botata** (4); **aingura botatzea** (3); **aingura jaso** (3); **aingura jaso eta** (3); **baina aingura** (3); **eta aingura** (3); **eta aingurak** (3); **lurreko aingura** (3); **zuen aingura** (3)

---

ainguraburu *iz* ainguraren burua.

Hemen betikoa dago lana eta asperdura zertarako sartuko dut hementxe bertan **ainguraburuan** hego haizea ta odolean kalentura oraintxe bizi nahi nuke. Berria - Kultura

---

ainguragile *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* aingurak egiten dituen pertsona.

Arrantza eta merkataritzari eusteko ikaragarrizko jendetzak lan egiten zuen: ontzigileak, errio-arotzak, **ainguragileak**, iltzegileak, garraiorako mandazain eta itzainak, gurdigileak, perratzaileak, sagardogileak, eskribauak, kalamua lantzen zuten baserritarrak, baso-mutilak... ETC-prentsa

Lehendabizikoa **ainguragileei** beren lana arretaz egiteko luzatu eskaera soila litzateke izan ere erregearen menpekoen bizitzaren segurtasuna haiei baitzihoakien: ETC-literatura, saiakera

---

ainguragintza *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* aingurak egitea.

Gipuzkoako **ainguragintzan** zeuden maisuei nahiz langile orori helarazteko ardurak biziki kezkatu zuen. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, honek benetako industria-espioitza egin ondoren, **ainguragintzan** Holandan erabiltzen zen metodoa ekarri zuen. ETC-entziklopedia

---

ainguragune *iz irud* ainguratzeko gunea.

Ainguragune asko dituen zuntz sare batek eusten die epidermiseko zelula biziei, geruza basalekoei eta ingurukoei. Irene Aldasoro

Soldadura-puntuen antzekoak dira **ainguragune** horiek, alboko zelulen pareten han-hemenkako loditzearen bidez eratuak. Irene Aldasoro

---

ainguraketa **1** *iz* ainguratzea.

Azaldu zuenaren arabera, istripua zubiaren **ainguraketa** sistemak huts egiterakoan gertatu zen. Berria - Euskal Herria

2 ***sare ainguraketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Sare ainguraketa. ETC-entziklopedia

---

ainguraleku *iz* ainguratokia.

Itsasoko estazioari nahi adinako zabalera eman diote eta dragatze lan iraunkorren bidez 10,70 metroraino handitu dute **ainguralekuaren** sakonera itsasbeheran. Monika Etxebarria

---

ainguramendu *iz* ainguratzea.

Samingarria izan zen arotz pare bat akuratu beharra, zeinei Emiliok agindua eman baitzien kanpaia zatikatu gabe bere **ainguramendu** -erroetatik atera ahal izateko moduko zer bat antolatzeko Juan Garzia

---

ainguratoki *iz* ainguratzeko tokia.

Erregeari erantzuna ematera haraino joan baino lehen itsasontziak ez baitira higituko, eta are ondoren ere, egoeraren arabera, agian marearen laguntzaren zain egon beharko dute **ainguratokia** finkatzeko edo itsas handirantz egiteko. Alde batean **ainguratokiren** bat balego eta inongo ibairik ez traba egiteko, orduan beste aldetik malekoi edo dike bat egingo da hormak edo lubeta eginez, eta honela eratuko da portuaren ahoa edo bokalea. Jon Alonso

---

ainguratu, aingura(tu), ainguratzen **1** du *ad* aingura bidez finkatu.

Ontziak ibaian **ainguratu**, han itxaroteko agindu, eta zelatariak bidali nitian, ingurua aztertzera. Juan Kruz Igerabide

Aturriko bokalean **ainguratua** zegoen lineako ontzi bat ikustera joan ginen behin. Koldo Izagirre

1921eko urriaren 4an, Patnak, Bombay-ra ninderaman ontziak, Eritreako itsasaldeko portu batean **ainguratu** behar izan zuen. Juan Garzia

Ibaiaren erdian, berriz, uharte oihantsua sortzen zen, eta haren kostaldean ontzi ugari zeuden **ainguraturik**. Agustin Otsoa

Portuan **ainguratuta** baleude bezala aditzen ziren olatuak txaluparen saihetsa jo eta astintzen. Anton Garikano

Portuan ere ikusia nuen **ainguraturiko** ontzi guztiak azpia jana zutela. Juan Garzia

Azkenik batelak mugitzen hasten dira estuarioaren sarreran **ainguratuta** dauden hiru itsasontzi nagusien artean. Jon Alonso

O´Keefe sarjentu nagusia eta Dutch Robertson lehen mailako soldadua berrogeialdian **ainguratutako** ontziei eta ontziralekuz jositako itsasbazterrei begira zeuden. Lopez de Arana

2 irud/hed

Haserrerik gabe begiratu zidan, tristuraz besterik ez, eta bere izebaren eta bere aitonaren aurretik pasaz, bai baitzirudien aitona atarian **ainguratua** bizi zela, nigana etorri zen, artean geldi-geldirik nintzela espaloian. Jon Muñoz

Izar beltz finko bat balitz bezala, ortzian **ainguratua**. Joan Mari Irigoien

Inguruko ehunen dentsitate bertsua du bihotz naturalak, eta ondo sostengaturik dago, sendo eusten baitiote odol-hodi handiek eta perikardioak (bihotza biltzen duen zaku sendoa, diafragmari eta hestegorriari **ainguratua**). Irene Aldasoro

Batzuetan benetako etxaldea zirudien, bizitza han **ainguratuz** gero inongo kezkarik gabe bizitzeko moduko etxalde bat. Ander Irizar

Ez dago arrazoirik Frantzia beti bere beldurretan **ainguratua** egongo dela pentsatzeko. Berria - Mundua

Rodolfo iraganean **ainguraturiko** borrero krudel bat baino ez zen izan handik aurrera gau osoan. Aritz Gorrotxategi

Mendebaldeko ekonomia oroirenslearen ikuspuntutik, iraganean **ainguraturik** dago Dedal hau. Edorta Jimenez

Dagoeneko begien bistan zeukan kanpoko atea ahaztuta, supituki bere pausoa **ainguratu** eta komuneko atearen parean geratu zen, elkarrizketaren aiduru. Harkaitz Cano

Iraganaren zamaz **ainguratuta** zailtasunak dituzte berrikuntzak asmatzerakoan, aurrera egiteko egokitze prozesuan. Berria - Kirola

Hain zuzen, bazegoen nigan alde bat, errai-erraietan **ainguratuta**, Idoiak ezagutu gabea, ezkutatua nion gauza bakarra: Urte askotako itsas labarra dago bion artean, egun astunak, **ainguraturik** dauden irribarre haiek auzoko bolera zaharreko traste higatuetan usteldu dira. Juan Kruz Igerabide

Udazkenak **ainguratu** egiten ditu bihotzak. Karlos Linazasoro

3 (era burutua izenondo gisa)

Leihotik Hudson ibai arbel-kolorekoari begira zeuden, baita gerraontzi **ainguratu** batzuei eta ibaian gora bira egiten ari zen goleta bati ere. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

portuan ainguraturik (3); **portuan ainguratuta** (3)

---

ainhiztar *izlag/iz* Ainhizekoa, Ainhizeri dagokiona; Ainhizeko biztanlea.

Eskolekin ere harremanetan dira hastapenetik, hala nola Hazparneko ikastetxe batekin, Xarlo Iralour **ainhiztar** erakaslearen bitartez, eta Milafrangako lehen maila batekin, Cyrrine Hargain baigorriar erakaslearen bitartez. Herria

---

ainhoar *izlag/iz* Ainhoakoa, Ainhoari dagokiona; Ainhoako biztanlea.

Dantza jauzietan bazituen berak arrañaturik frango pieza, hala nola "Milafrankarrak", "Baztandarrak", **"Ainhoarrak"** eta beste. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

.: **Ainhoarra** zen sortzez, ixtripuz erran behar eta. Herria

---

ainitz **1** *zenbtz* anitz.

Ainitz egin du Ganix-ek euskaldunen artean. Herria

Gogoeta **ainitz** egiten dut, bainan berehala hil behar banu pentsalari libre baten ehorzketak behar nuzke. Marzel Etxehandi

Lehenik, errugbia **ainitz** gustatzen zitzaidala eta Donibane Lohitzuneko "Olympique" errugbi taldearen balentriak miresten nituela garai hortan. Ramuntxo Etxeberri

Bon, nik **ainitz** musika oraiko ez dut konprenitzen. Menane Oxandabaratz

Gaurkoan tesia ez du **ainitz** aitzinatu. Eneko Bidegain

Ainitz jende eta **ainitz** irabazle, bainan nik ez dut bildu ahal izan irabazle guzien izenik. Herria

Ezin sinetsiak fiertasuna luzatu zidan, gero goxatuko nuela haatik **ainitz** urtez barneko poza. Piarres Aintziart

2 *ainitz eta ainitz* adlag

Beste herri edo parropietan bezala **ainitz eta ainitz** jende ibili da hil hobietan eta Omiasainduko zeremonietan. Herria

Eta **ainitz eta ainitz** irakurri dut eta horrek poxiño bat salbatu egin nau, bai. Menane Oxandabaratz

3 *ainitzetan* adlag

Pinochet-en denboran **ainitzetan** preso egona, jendea laguntzen baitzuen anbazadetan sartzen edo torturaren kontra manifestatzen baitzuen.... Herria

Ainitzetan hil-harrietan duk ikasten gizonen bizia. Herria

4 *ainitzez* adlag

Ezagutzen ditugu orai sendagailu generikoak, beste erremedioak baino **ainitzez** merkeago izaiten ahal ditugunak eritasun gaixto batzuen artatzeko. Herria

Nik behar nikek besteak baino **ainitzez** ere itsusiago jarri zerbait gisaz! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Horiek hola, Xina jendetsuago da **ainitzez** eta hortan lukete beren abantaila gerla zerbait balitz. Herria

5 *ainitz urtez*

Ainitz urtez edozein denboraz, gure ezkilari mintzoa bazakien emaiten, izan hiru anjelusak, izan deia edo hilezkilak, kargu dorpea herritar guzien zerbitzuko. Herria

Ezin sinetsiak fiertasuna luzatu zidan, gero goxatuko nuela haatik **ainitz urtez** barneko poza. Piarres Aintziart

Bainan erran behar dugu Marijane Minaberri, orain erretretan zirela eta Sud-Ouest kaseta hortan **ainitz urtez** lan egin duzula. Menane Oxandabaratz

6 *esker ainitz*

Enpresa horri **esker ainitz** teknikalari eta ingineri gazte (mutiko eta neskato) bildu ziren Iparralde honetan, Baiona inguruan, burumuinen metaketa bat egiten zela hor. Herria

7 *eskerrik ainitz*

Eta nik erran nion: **"Eskerrik ainitz**, Johañe". Menane Oxandabaratz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

adixkide ainitz (8); **agian ainitz** (12); **ainitz aipatu** (15); **ainitz aipatzen** (7); **ainitz aipu** (24); **ainitz aldiz** (20); **ainitz bada** (18); **ainitz badira** (13); **ainitz balio** (10); **ainitz bazen** (16); **ainitz bezala** (12); **ainitz bildu** (29); **ainitz da** (12); **ainitz denbora** (16); **ainitz egin** (25); **ainitz egiten** (12); **ainitz ere** (16); **ainitz eskualdetan** (9); **ainitz estimatu** (7); **ainitz estimatzen** (12); **ainitz eta** (61); **ainitz eta ainitz** (43); **ainitz ez** (7); **ainitz galde** (7); **ainitz gauza** (66); **ainitz gazte** (8); **ainitz gisetarat** (29); **ainitz gostatzen** (9); **ainitz haur** (7); **ainitz herritan** (19); **ainitz herritar** (8); **ainitz ibili** (14); **ainitz ikasi** (7); **ainitz izan** (17); **ainitz izanen** (8); **ainitz jende** (147); **ainitz jende bildu** (20); **ainitz jende ibili** (8); **ainitz jendek** (50); **ainitz jendek parte** (18); **ainitz lan** (38); **ainitz lekutan** (8); **ainitz munta** (16); **ainitz partida** (8); **ainitz sari** (15); **ainitz sofritu** (8); **ainitz solas** (7); **ainitz tokitan** (65); **ainitz ukan** (8); **ainitz urte** (11); **ainitz urtez** (80); **ainitz zerbitzu** (9); **ainitz zorion** (69); **ainitz zorion desiratzen** (10); **ainitz zorion eta** (16); **ainitz zorion haur** (7)

bada ainitz (9); **badira ainitz** (8); **bertze ainitz** (22); **beste ainitz** (48); **bezala ainitz** (9); **biziki ainitz** (17); **denek ainitz estimatzen** (7); **dezatela ainitz** (7); **ez da ainitz** (10); **gauza ainitz** (18); **gazte ainitz** (14); **haatik ainitz** (7); **hori ainitz** (7); **horietan ainitz** (8); **horrek ainitz** (15); **hortan ainitz** (9); **izan da ainitz** (8); **jadanik ainitz** (7); **jende ainitz** (136); **jende ainitz bildu** (27); **jende ainitz ibili** (8); **kantu ainitz** (8); **lan ainitz** (10); **mota ainitz** (10); **oraino ainitz** (13); **sari ainitz** (20); **zen ainitz** (8); **ziren ainitz** (7); **zorion ainitz** (10)

ainitzek bezala (8); **ainitzek diote** (14); **ainitzek ez** (37); **ainitzek ez dute** (8); **ainitzek nahiko** (10); **ainitzek parte** (17); **ainitzek parte hartzen** (7); **ainitzek uste** (20); **ainitzek uste zuten** (8); **beste ainitzek** (16); **diote ainitzek** (8); **dute ainitzek** (10); **jende ainitzek** (34); **jende ainitzek parte** (12)

jende ainitzekin (8); **kar ainitzekin** (13)

ainitzen arrangura (17); **ainitzen beldurra** (11); **ainitzen gostuko** (48); **beste ainitzen** (10); **eta ainitzen** (8)

---

ainiztasun ik **aniztasun**.

---

aino *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)* **1** *iz* Claviceps generoko onddoa, berrogeita hamar espezie baino gehiago dituena *(Claviceps sp.)*.

Ainoa zikirioaren eta beste laboreen gaitza da, ludoia eta erdoia bezala ere jaso izan dena. ETC-prentsa

Mirakulua 1597an gertatu zen, ordea; ez, baina, santu baten gonapean, Marburgoko (Alemania) Medikuntza Fakultatean baizik: gaitza **ainoak** kutsatutako zikirioz egindako

ogi beltza jatetik soilik sortzen zela aurkitu zuten. ETC-prentsa

Soroko lurreko kobre eskasiak zikirio-**ainoa** bezala beste kalte ugari sor dezake. ETC-prentsa

2 *zekale aino* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Zekale-aino ("Claviceps purpurea") zekalea loratzean horren obulutegietan sartzen den onddo askomizetoa da, haztean leka beltz baten itxura hartzen duena. Berez pozoitsua da. Onddo hori duen zekalea (Secale cornutum) hainbat botika egiteko biltzen da. ETC-entziklopedia

Zekale-ainoaren ergolina taldeko alkaloideak sendagai moduan erabili ote zitezkeen ikertzen ari zen. ETC-prentsa

Onddo honek zekalearen egiturak inbaditzen ditu eta garatzen da adar formako egitura more bat sortuz (**zekale-aino**). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aintza *(ETCn **1.438** agerraldi)* 1 *iz* erabateko ospea. ik **loria**.

Aintza zeru gorenean Jainkoari eta bakea lurrean berak hain maite dituen gizon-emakumeei! Elizen arteko biblia

Hila izan den bildotsa bada nor, gorespena, **aintza** eta ohorea hartzeko. Askoren artean

Bedeinka dezagun Jainko Jaun bizi eta egiazkoa; eman diezaiogun beti gorespena, **aintza**, ohorea, bedeinkapena, eta aitor dezagun on guztiak berarenak direla. Askoren artean

Noblea eta boteretsua baitzen, eta **aintza** eta ospea nahi zenituen: lurrean arrastaka dabiltzan gauza ziztrinen gainetik ibili nahi zenuen. Agustin Otsoa

Tronuan eseria dagoenari eta Bildotsari gorespena, ohorea, **aintza** eta agintaritza, menderen mendetan. Elizen arteko biblia

Eta ni nagoen lekuan hauek ere nirekin egotea nahi dut, Aita, nire **aintza** ikus dezaten zure erreinuan. Elizen arteko biblia

Zuregandik datoz aberastasuna eta **aintza** ; zeure menpe duzu dena. Elizen arteko biblia

Jaunaren **aintza** lainoan agertuko da, Moisesen garaian bezala.han agertu zitzaidan Israelen Jainkoaren **aintza** , haranean ikusia nuena bera. Elizen arteko biblia

Ezertan ere ez nahi izan norberaren interesik baizik eta desiratu eta bilatu Jainkoaren ohorea eta **aintza** bakarrik. Joan Mari Lekuona

On guztia den Jainkoari **aintza** oro, ohore oro, gorespen oro zor diogu. Askoren artean

Gu guztiok, aurpegia agerian dugula, Jaunaren **aintza** islatzen dugu, eta haren irudira ari gara eraberritzen. Elizen arteko biblia

Handik bota zutenak bekaitzez zurbilduko ziren Demetriosek sortu eta Alexandriari **aintza** ekarri zioten bi erakundeen aurrean: Museoa eta Liburutegi Nagusia. Jon Muñoz

1763an Zazpi Urteko gerraren bukaera ekarri zuen bake hitzarmena sinatu zuen Frantziak, Laclosek gerran **aintza** lortzeko zituen ametsak ustel gertatu ziren, beraz. Jon Muñoz

Honetarako deitu zaituzte Jainkoak guk hots egindako berrionaren bidez: Jesu Kristo gure Jaunaren **aintza** eskuratzeko. Elizen arteko biblia

Jende itxuragabe honek zure **aintza** merezi duela sinetsi behar ote dut? Askoren artean

Oteizak ezin esango du bizi zela merezi zuen **aintza** eman ez zaionik, eman ez diogunik. Joxerra Garzia

Haien lan-zaletasuna eta trebezia bikaina goraipatzen zuen, Jaunari **aintza** emanez. Askoren artean

2 (deklinabide atzizkiarekin)

Apaizak ezin ziren han egon beren eginkizuna betetzen laino hura zela-eta; izan ere, Jaunaren **aintzak** bete zuen Jaunaren etxea. Elizen arteko biblia

Apaizak ezin ziren Jaunaren etxean sartu, Jaunaren **aintzak** betetzen baitzuen tenplua.Salomonek otoitza bukatzean, zerutik jaitsitako suak kiskali egin zituen erre-opariak eta eskaintzak, eta Jaunaren **aintzak** bete zuen tenplua. Elizen arteko biblia

Apaizak ezin ziren Jaunaren etxean sartu, Jaunaren **aintzak** betetzen baitzuen tenplua. Elizen arteko biblia

Santuak Espiritu Santuaren eraginez bultzatuak izaten dira inoiz beren buruaz zenbait gauza harrigarri esatera: edo Jainkoaren **aintzak** hark adierazitako zerbait azaltzea eskatzen duenean edota karitatearen betebeharrak lagun hurkoa eraikitzeko exijitzen duenean.Santuak Espiritu Santuaren eraginez bultzatuak izaten dira inoiz beren buruaz zenbait gauza harrigarri esatera: edo Jainkoaren **aintzak** hark adierazitako zerbait azaltzea eskatzen duenean edota karitatearen betebeharrak lagun hurkoa eraikitzeko exijitzen duenean. Askoren artean

Gizonak, bada, ez du estali behar burua, Jainkoaren irudi eta berorren **aintzaren** isla baita; emakumea, berriz, gizonaren **aintzaren** isla da. Elizen arteko biblia

Bertan ematen da, Gregorio Aita santu dohatsuak eta harekin batera Erromako Eliza santuko kardinal guztiek, Frantzisko santuen izendegian ezarri zutenean, debozio biziz eskaini zioten benerazio, ohore, ospe eta **aintzaren** berri ere. Askoren artean

Nekerik gabe lortutako paradisuak ez du gogoberotzen sinestuna; **aintzaren** merituaren erdia gutxienez zailtasunean datza, eta, Juliorentzat, dirua lortzeko zailtasuna zen haren xarmarik handienetako bat. Josu Zabaleta

Azkenean, bere **aintzaren** seinale, zerurantz eramana izan zen suzko gurdi batean. Jose Antonio Mujika

Adimenaren plazer oro, edo aintza da (hau da norberaren izen ona), edo, azken batez, **aintzari** dagokio.adimenaren plazer oro, edo aintza da (hau da norberaren izen ona), edo, azken batez, **aintzari** dagokio. Esteban Antxustegi

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Izan ere, oraingo gure nekeek, une bateko eta arinak izanik, betiko den **aintza** paregabea prestatzen digute. Elizen arteko biblia

Hura gizakien aintzaren atzetik dabil; honek, ostera, kontzientziaren testigu den Jaungoikoagan aurkitu du **aintza** gorena. Imanol Unzurrunzaga

Kaliope, musa trebe, gizakien atseden eta jainkoen atsegin horrek, zu gidari zarela, **aintza** gorenaren koroa atzeman dezadan. Xabier Amuriza

Dama noble eta ausarta zara, eta laguntzarik gabe zureganatu duzu **aintza** ahaztezina. Agustin Otsoa

Profesakoan hitzemandako izaerari leial eutsiko dioten anaiei betiko **aintza** agintzen die. Askoren artean

Kristau-itxaropena eta betiko **aintza** . Elizen arteko biblia

4 (hitz elkartuetan)

Hau, auzi-egunean, haur askoz erdiko da, egun hartan Epaileak haren **aintza** -kontuan ipiniko baititu orain otoitz isilez konbertitu dituenak. Askoren artean

Buruan koroa duela, **aintza** eta santutasun ezaugarri bezala. Askoren artean

5 *aintzako* *adlag*

Hemen, gainbeheraren egun hauetan ere, horrelako izaera duen gizonik bada oraindik, egundokoa izan behar zuen Gondorren **aintzako** garai oparoenetan. Agustin Otsoa

Alde batetik eta bestetik, herria, geu, alegia, gaituzte **aintzako** hartzen. Hasier Etxeberria

Eta, anitzetan, harreman pertsonalak negozioa bera ere baino **aintzakoagotzat** hartzen zituen. Joan Mari Irigoien

6 *aintzazko* *izlag*

Argi honen gainetik, bada sortua ez den beste indar bat, **aintzazko** argia deiturikoa, jainkozkoa, Jainkoa bera. Joan Mari Lekuona

Garai batean, espirituko tentaldi guztiz larria jasaten ari zen aita txit santua, noski beraren **aintzazko** koroa edertzeko. Askoren artean

Kristoren irudi berria deskubritzen du Frantziskok: ez **aintzazko** Kristo, gizaki ahul, pobre eta apala, mespretxatu eta baztertua, giza sufrimenduarekin, jaiotzatik heriotzara, bat egin duen Kristo baizik. Askoren artean

Dagoeneko zain daukat garaipenaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didana; eta ez niri bakarrik, bai eta haren **aintzazko** etorrera maitasunez itxaro duten guztiei ere. Elizen arteko biblia

Zu, haien guztien ondare lehena eta hoberena, aingeru taldeekin elkartua eta Apostoluen artean **aintzazko** aulkian eseria zauden bitartean, zure semeak lokatzetan eta kartzela ilunean sartuak daude. Askoren artean

Dagoeneko Jainkoaren seme-alaben **aintzazko** askatasunera iritsia balitz bezala. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aintza agertu (5); **aintza aitari** (12); **aintza aitari batekin** (3); **aintza aitari esanez** (3); **aintza aitari eta** (3); **aintza aurrez** (3); **aintza aurrez agertu** (3); **aintza azal** (3); **aintza**

azalduko (3); aintza berari (4); aintza eman (5); aintza emango (3); aintza eta (47); aintza eta goresperenerako (3); aintza eta ohorea (5); aintza guztia (5); aintza hots (3); aintza ikus (3); aintza ikus dezaten (3); aintza ikusi (3); aintza jainko (3); aintza jainkoari (6); aintza menderen (4); aintza menderen mendetan (4); aintza zeru (4); aintza zeru gorenean (3); aintzak bete (5); aintzak bete zuen (4); aintzak tenplua (3); aintzak tenplua betetzen (3); aintzakotzat ez (6); aintzakotzat ez hartzea (3); aintzakotzat hartu (76); aintzakotzat hartu behar (9); aintzakotzat hartu beharko (4); aintzakotzat hartu beharreko (5); aintzakotzat hartu eta (3); aintzakotzat hartu ez (8); aintzakotzat hartu gabe (7); aintzakotzat hartua (4); aintzakotzat hartuko (11); aintzakotzat harturik (4); aintzakotzat hartuta (10); aintzakotzat hartuz (11); aintzakotzat hartzea (12); aintzakotzat hartzeko (19); aintzakotzat hartzeko moduko (6); aintzakotzat hartzekoa (5); aintzakotzat hartzen (73); aintzakotzat hartzen dutenen (3); aintzakotzat hartzen ez (8); beraren aintza (3); berari aintza (3); bere aintza (6); betiko aintza (3); da aintzakotzat (3); da nire aintza (3); dira aintzakotzat (4); ditu aintzakotzat (5); dituzte aintzakotzat (3); du aintzakotzat (7); duen aintza (3); eman aintza (4); ere aintzakotzat (7); ere aintzakotzat hartzen (3); eta aintza (41); eta aintzakotzat (14); eta aintzakotzat hartu (7); eta jaunaren aintzak (6); euskal herria aintzakotzat (4); ez du aintzakotzat (6); ez zuen aintzakotzat (7); gorespena eta aintza (3); gurutzearen aintza (3); hain aintza (3); haren aintza (8); hartzen ditu aintzakotzat (3); herria aintzakotzat (4); herria aintzakotzat hartzen (3); hori aintzakotzat (6); horiek aintzakotzat (3); inork aintzakotzat (3); israelgo jainkoaren aintza (3); jainko aintza (6); jainkoaren aintza (22); jainkoaren aintzak (4); jaunaren aintza (18); jaunaren aintza agertu (3); jaunaren aintzak (12); jaunaren aintzak bete (4); jaunaren aintzak tenplua (3); nire aintza (9); ohore eta aintza (5); ohorea eta aintza (6); oso aintzakotzat (8); oso aintzakotzat hartu (3); osotasuna aintzakotzat (3); semearen aintza (5); zeure aintza (4); zituen aintzakotzat (3); zuen aintzakotzat (9); zuen aintzakotzat hartu (3); zuen aintzakotzat hartzen (4); zure aintza (6); zuten aintzakotzat (5)

aintzarako eta (6); aintzaren distira (3); aintzaren distira eta (3); aintzarik handienerako (3); bere aintzara (4); bere aintzarako (8); bere aintzaren (5); eta aintzarako (9); eta aintzarako eta (3); gorespen eta aintzarako (7); haren aintzarako (3); haren aintzaren (3); jainkoaren aintzarako (8); jainkoaren aintzaren (7); jainkoaren aintzaren distira (3); jaunaren aintzarako (4); jaunaren aintzaren (4); jerusalemen aintzarako (4); paradisuko aintzara (4); zeruko aintzan (3)

agintariek aintzat (5); agintariek aintzat hartu (3); aguirrek aintzat (4); aholkua aintzat (6); aholkua aintzat hartu (5); aholkuak aintzat (3); aintzat bere (3); aintzat ere (8); aintzat ere hartzen (3); aintzat eta (4); aintzat ez (47); aintzat ez hartzea (27); aintzat ez hartzeko (9); aintzat har (29); aintzat har ditzan (4); aintzat hartu (840); aintzat hartu arren (3); aintzat hartu behar (139); aintzat hartu beharko (44); aintzat hartu beharra (4); aintzat hartu beharreko (17); aintzat hartu beharrekoa (6); aintzat hartu beharrekoak (3); aintzat hartu dira (3); aintzat hartu ditu (23); aintzat hartu dituen (3); aintzat hartu dituzte (9); aintzat hartu dituztela (4); aintzat hartu du (45); aintzat hartu duela (4); aintzat hartu dute (15); aintzat hartu ere (10); aintzat hartu eta (68); aintzat hartu ez (31); aintzat hartu gabe (89); aintzat hartu izan (3); aintzat hartu nahi (21); aintzat hartu nire (3); aintzat hartu ondoren (3); aintzat hartu zituen (6); aintzat hartu zituzten (4); aintzat hartu zuela (5); aintzat hartu zuen (18); aintzat hartu zuten (9); aintzat hartua (24); aintzat hartua izan (3); aintzat hartua izateko (6); aintzat hartuak (13); aintzat hartuak izan (5); aintzat hartuak izatea (3); aintzat hartuko (135); aintzat hartuko dira (5); aintzat hartuko ditu (4); aintzat hartuko dituen (11); aintzat hartuko ditugu (4); aintzat hartuko dituzte (4); aintzat hartuko dituztela (5); aintzat hartuko du (6); aintzat hartuko duela (3); aintzat hartuko duen (5); aintzat hartuko dutela (4); aintzat hartuko ez (14); aintzat harturik (29); aintzat hartuta (408); aintzat hartuta egin (4); aintzat hartuta ere (5); aintzat hartuta eta (5); aintzat hartuta ez (4); aintzat hartutako (7); aintzat hartuz (178); aintzat hartuz egin (6); aintzat hartuz eta (3); aintzat hartuz gero (59)

aintzat hartzea (86); aintzat hartzea erabaki (4); aintzat hartzea espero (3); aintzat hartzea eta (8); aintzat hartzea ezinbestekoa (3); aintzat hartzeak (7); aintzat hartzearen (4); aintzat hartzeari (4); aintzat hartzeke (3); aintzat hartzeko (130); aintzat hartzeko eskaera (3); aintzat hartzeko eskatu (33); aintzat hartzeko eskatzen (4); aintzat hartzeko eta (4); aintzat hartzeko moduko (11); aintzat hartzeko modukoa (8); aintzat hartzeko modukoak (5); aintzat hartzekoa (23); aintzat hartzekoa da (12); aintzat hartzekoak (8); aintzat hartzekoak dira (3); aintzat hartzen (408); aintzat hartzen ari (5); aintzat hartzen bada (13); aintzat hartzen badira (3); aintzat hartzen badugu (10); aintzat hartzen ditu (13); aintzat hartzen dituela (4); aintzat hartzen dituen (3); aintzat hartzen dituzte (3); aintzat hartzen du (10); aintzat hartzen duela (6); aintzat hartzen duen (20); aintzat hartzen duena (5); aintzat hartzen dugu (4); aintzat hartzen dute (3); aintzat hartzen dutela (7); aintzat hartzen duten (12); aintzat hartzen eta (4); aintzat hartzen ez (48); aintzat hartzen salatu (7); aintzat hartzen zituen (5); aintzat hartzera (14); aintzat izan (4); aintzat izanda (3); aldaketak aintzat (4); aldarrikapenak aintzat (5); alderdiak aintzat (3); aniztasuna aintzat (6); aniztasuna aintzat hartuta (3); arazoak aintzat (3); argudioak aintzat (3); arte aintzat (4); arte aintzat hartu (3); aukera aintzat (6); aukera aintzat hartzen (3); aukera guztiak aintzat (3); aukera hori aintzat (3); aurrekariak aintzat (4); aurrekariak aintzat hartuz (3); autodeterminazio eskubidea aintzat (7); auzitegi nagusiak aintzat (5); baina aintzat (9); baina aintzat hartu (6); baitira aintzat (5); bakarrik aintzat (4); bat aintzat (12); bat aintzat hartuta (3); batasuna aintzat (4); batasuna aintzat hartu (4); baterako aintzat (3); batzordeak aintzat (4); batzordeak aintzat hartu (4); batzuk aintzat (6); batzuk aintzat hartuta (3); behar bezala aintzat (4); behar da aintzat (7); behar dira aintzat (12); behar ditu aintzat (3); beharko ditu aintzat (3); beharrak aintzat (3); bereziki aintzat (4); berezitasunak aintzat (3); bezala aintzat (8); bezala aintzat hartzen (4); bidea aintzat (4); biktimak aintzat (3); biktimak aintzat hartu (3); borondatea aintzat (3); bozak aintzat (3); da aintzat (38); da aintzat hartu (8); da aintzat hartzen (8); dagoela aintzat (4); dagoela aintzat hartuta (3); datu horiek aintzat (3); datuak aintzat (11); datuak aintzat hartu (3); datuak aintzat hartuta (7); dela aintzat (36); dela aintzat hartuta (17); dela aintzat hartuz (8); dela aintzat hartzen (8); den aintzat (8); den aintzat hartuta (5); dena aintzat (4); dena aintzat hartu (3); denak aintzat (4); dira aintzat (34); dira aintzat hartu (5); dira aintzat hartzen (4); direla aintzat (23); direla aintzat hartu (3); direla aintzat hartuta (10); direla aintzat hartuz (6); ditu aintzat (53); ditu aintzat hartu (15); ditu aintzat hartzen (12); dituela aintzat (12); dituela aintzat hartu (5); dituela aintzat hartuta (3); dituela aintzat hartzen (3); ditugu aintzat (9); ditut aintzat (3); dituzte aintzat (24); dituzte aintzat hartu (5); dituzte aintzat hartzen (8); dituztela aintzat (4); du aintzat (52); du aintzat hartu (22); du aintzat hartzen (16); du kasik aintzat (3); duela aintzat (28); duela aintzat hartu (5); duela aintzat hartuta (12); duela aintzat hartuz (3); duela aintzat hartzen (5); duelako aintzat (4); duelako aintzat hartzen (3); duen garrantzia aintzat (3); duen maila aintzat (3); dugu aintzat (10); dugu aintzat hartzen (3); dugula aintzat (3); dut aintzat (3); dute aintzat (20); dute aintzat hartu (5); dute aintzat hartzen (4); dutela aintzat (17); dutela aintzat hartu (5); dutela aintzat hartzen (3); dutelako aintzat (4); egindako eskaera aintzat (3); egindako lana aintzat (3); egoera aintzat (23); egoera aintzat hartu (3); egoera aintzat hartuta (14); egoera aintzat hartzeko (3); ekarpena aintzat (3); ekarpenak aintzat (4); ekonomikoa aintzat (4); ekonomikoa aintzat hartuta (3); emaitza horiek aintzat (3); emaitzak aintzat (11)

emaitzak aintzat hartuta (6); emakumeak aintzat (4); emakumeak aintzat hartzeko (3); epaileak aintzat (3); eragina aintzat (3); ere aintzat (91); ere aintzat hartu (42); ere aintzat hartuko (5); ere aintzat hartzeko (7); ere aintzat hartzekoa (3); ere aintzat hartzen (22); eredua aintzat (3); errealitatea aintzat (5); erreferenduma aintzat (3); erreferenduma aintzat hartuko (3); esanak aintzat (3); esandakoa aintzat (7); eskaera aintzat (38); eskaera aintzat hartu (22); eskaera aintzat hartuz (5); eskaera aintzat hartzen (4); eskaerak aintzat (10); eskaerak aintzat hartu (4); eskaintza aintzat (5); eskaintza aintzat hartu (4); eskakizunak aintzat (6); eskakizunak aintzat ez (3); eskariak aintzat (3); eskubidea aintzat (9); eskubidea aintzat hartzen (4); eskubideak aintzat (19); eskubideak aintzat hartu (5); eskubideak aintzat hartzeko (4); eskubideak aintzat hartzen (6); eta aintzat (44); eta aintzat hartu (18); eta aintzat hartuko (3); eta aintzat hartzen (10); eta hori aintzat (10); etxebizitza sailak aintzat (3); euren iritzia aintzat (3); euren irizpideak aintzat (4); euskal herria aintzat (19); euskara aintzat (7); euskara aintzat hartzen (4); ez aintzat (8); ez aintzat hartu (3); ez da aintzat (17); ez dela aintzat (6); ez dira aintzat (13); ez direla aintzat (5); ez ditu aintzat (30); ez dituela aintzat (10); ez ditugu aintzat (3); ez dituzte aintzat (14); ez dituztela aintzat (4); ez du aintzat (35); ez duela aintzat (9); ez duelako aintzat (3); ez dugu aintzat (6); ez dute aintzat (11); ez dutela aintzat (8); ez dutelako aintzat (4); ez nuen aintzat (3); ez zen aintzat (5); ez zituen aintzat (13); ez zituzten aintzat (5); ez zuela aintzat (3); ez zuen aintzat (15); ez zuten aintzat (8); ezaugarriak aintzat (7); ezaugarriak aintzat hartuta (4); ezberdintasuna aintzat (3); ezberdintasuna aintzat hartu (3); gabe aintzat (5); gabe aintzat hartu (3); gabeziak aintzat (3); gaituzte aintzat (3); garela aintzat (3); garrantzia aintzat (8); garrantzia aintzat hartuta (4); gaueko markak aintzat (3); gehiago aintzat (3); geratzen direla aintzat (3); gertatutakoa aintzat (3); gisa aintzat (7); gizarteak aintzat (3); gomendioak aintzat (3); guztia aintzat (5); guztiak aintzat (33)

guztiak aintzat hartu (9); guztiak aintzat hartuko (5); guztiak aintzat hartuta (4); guztiak aintzat hartuz (4); guztiak aintzat hartzea (4); guztiak aintzat hartzen (5); hartu dituzte aintzat (5); hartu du aintzat (6); hartu dute aintzat (5); hartu zituen aintzat (3); hartu zuen aintzat (3); hartu zuten aintzat (4); hartuko dira aintzat (4); hartuko dute aintzat (3); hartzen aintzat (3); hartzen da aintzat (4); hartzen dira aintzat (3); hartzen ditu aintzat (13); hartzen dituzte aintzat (3); hartzen du aintzat (6); hartzen zituen aintzat (3); hau aintzat (9); hau aintzat hartu (4); hauek aintzat (5); helegite aintzat (3); helegite aintzat hartu (3); helegitea aintzat (16); helegitea aintzat hartu (10); helegitea aintzat hartuz (3); herria aintzat (20); herria aintzat hartu (3); herria aintzat hartzea (4); herria aintzat hartzen (12); herritar guztiak aintzat (4); historikoak aintzat (3); hitza aintzat (4); hitza aintzat hartuko (3); hitzak aintzat (6); honek aintzat (3); honek aintzat hartu (3); hori aintzat (57); hori aintzat ez (3); hori aintzat hartu (18); hori aintzat hartuta (18); hori aintzat hartzeko (4); hori aintzat hartzen (6); hori ere aintzat (6); hori guztia aintzat (4); horiek aintzat (30); horiek aintzat hartu (9); horiek aintzat hartuta (10); horiek aintzat hartuz (3); horiek aintzat hartzeko (3); hura aintzat (7); hura aintzat ez (3); ikusitakoa aintzat (3); ikuspegia aintzat (4); indarra aintzat (4); inoiz aintzat (4); inoiz aintzat hartu (3); inork aintzat (8); inork aintzat hartzen (5); interesak aintzat (3); iritzia aintzat (18); iritzia aintzat hartu (8); iritzia aintzat hartzen (6); iritziak aintzat (5); iritziak aintzat hartu (3); irizpideak aintzat (8); irizpideak aintzat hartuz (4); izaera aintzat (3); izan dela aintzat (4); izango dela aintzat (3); jainkoa aintzat (3); jokatuko dela aintzat (3); jokoa aintzat (4); kasik aintzat (3); kontu horiek aintzat (3); kopurua aintzat (8); kopurua aintzat hartuta (5); lana aintzat (12); lana aintzat hartu (3); lana aintzat hartzeko (3); legea aintzat (5); legeak aintzat (7); legebiltzarrak aintzat (4); legebiltzarrak aintzat hartu (3); legedia aintzat (3); legez aintzat (3); maila aintzat (6); maila aintzat hartuta (5); markak aintzat (3); markak aintzat hartu (3); mugak aintzat (4); nagusiak aintzat (8); nagusiak aintzat hartu (6); nahia aintzat (3); nortasuna aintzat (3); nuen aintzat (6); oinarriak aintzat (5); oinarriak aintzat hartuta (3); oinarrizko eskubideak aintzat (3); ondorioak aintzat (4); orain aintzat (3); orduan aintzat (3); orduan aintzat hartu (3); oso aintzat (14); oso aintzat hartu (3); oso aintzat hartzen (4); osoa aintzat (5); osoa aintzat hartzen (3); osoko datuak aintzat (3); partida aintzat (3); partidak aintzat (3); pisua aintzat (3); politikoa aintzat (4); politikoa aintzat hartuta (3); politikoak aintzat (7); probak aintzat (3); probak aintzat hartuta (3); proposamena aintzat (16); proposamena aintzat hartu (7); proposamenak aintzat (7); proposamenak aintzat hartu (3); puntuak aintzat (3); puntuak aintzat hartuta (3); sailak aintzat (5); sailak aintzat hartu (5); sailkapena aintzat (3); sailkapena aintzat hartuta (3); salaketa aintzat (4); salaketak aintzat (5); salaketak aintzat hartu (4); soilik aintzat (5); sufrimendua aintzat (4); txostena aintzat (4); zalaparta aintzat (3); zein den aintzat (5); zela aintzat (5); zen aintzat (8); zen aintzat hartu (3); zirela aintzat (3); zituela aintzat (4); zituen aintzat (19); zituen aintzat hartu (9); zituen aintzat hartzen (4); zituzten aintzat (8); zituzten aintzat hartu (5); zuela aintzat (5); zuen aintzat (22); zuen aintzat hartu (12); zuen aintzat hartzen (3); zutela aintzat (4); zutela aintzat hartuta (3); zuten aintzat (13); zuten aintzat hartu (5); zuten aintzat hartzen (3); zuzenketa aintzat (4); zuzenketak aintzat (3)

ahalmen eta aintzaz (3); aintzaz bete (4); aintzaz betea (9); aintzaz beteko (3); aintzaz beterik (23); aintzaz beterik etortzen (3); aintzaz beteriko (11); aintzaz beteriko errege (3); aintzaz dirdaitsu (3); aintzaz eta (5); aintzaz koroatua (3); aintzazko zauri (5); aitaren aintzaz (4); alaben aintzazko (3); bere aintzaz (4); bere aitaren aintzaz (4); da aintzaz (3); da aintzaz beteriko (3); eta aintzaz (15); eta aintzaz beterik (6); ohorez eta aintzaz (5); seme alaben aintzazko (3)

---

aintzagarri *izond* aintza merezi duena.

Honengatik guztiagatik zilegi bekigu honela hots egitea: Zein **aintzagarri** santu hau! apaiz hori edozein gizaki bertutetsu eta barnezale da, bere baitan sartzen dena, berekin Jesukristo gure Jaunaren odol **aintzagarria** eramanez jaierazko suarekin batera, eta karitatezko gartsutasunez Baina horretara ez gara iritsi oraindik, eta ez nieke gertaera **aintzagarri** horiei aurrea hartu nahi. Askoren artean

Portaera **aintzagarria** goretsi. Juan Garzia

Frantziskok erantzun zion: "Seme, horietan ere Jainko Jaunaren izen txit **aintzagarria** osatzen duten letrak agertzen direlako. Askoren artean

Antso Handiaren erregealdia izango zen Nafarroako erresumako **aintzagarriena** eta distiratsuena. Berria - Kultura

Iritsiko ahal gara gu guztiok honetara modurik azkarrenean, eta Jainkoarentzat **aintzagarrienean**. Joan Mari Lekuona

San Frantziskok Ordenan hartu zuen anai Egidio, eta berau izan zen munduak garai hartan kontenplazio-bizitzan izan zuen erlijioso **aintzagarrienetako** bat. Askoren artean

aintzagarriro *adlag* era aintzagarrian.

Asko maite izan zintuen, hain **aintzagarriro** apaindu zenuen hark! Askoren artean

---

aintzaka *adlag* aintza emanez.

Frantziskoren heriotzakoan jendea samaldan bildu zen, Jainkoaren izenari **aintzaka** eta goraka. Askoren artean

Artzainak entzun eta ikusi zutenarengatik Jainkoari **aintzaka** eta goraka itzuli ziren, dena aingeruak esan bezala gertatu baitzitzaien. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aintzaka eta goraka (3)

---

aintzakotzat

1 ***aintzakotzat eduki*** kontuan eduki.

Baindarrak txiroak ziren, eta Whittaker andreak, berriz, lañotasunez esan ohi zaionez, ezkontza ona zertu zuen, eta guztiek ere oso **aintzakotzat zeukaten** beti egitate hura. Mirentxu Larrañaga

Langile ona, nagusiek **aintzakotzat zeukatena**, etxean emaztearekin eta bere hiru seme-alabekin goxo, adiskidetsu eta gizonki jokatzen zuena. Gotzon Garate

2 ***aintzakotzat eman*** kontuan izan.

CIAk **aintzakotzat eman** ez zituen zantzuen artean 2001eko uztailean FBI Poliziak ondutako txosten bat dago, non esaten zen Arizona estatuan «interes terrorista» zegoela hegazkintza zibileko pilotuen eskola batekiko. Berria - Mundua

3 ***aintzakotzat hartu*** kontuan hartu; asumitu.

Ezadostasunak ezadostasun, Freuden ekarpena **aintzakotzat hartu** behar dela uste du. Berria - Harian

Erakunde ekologistek lan handia egin dute zentzu horretan, gobernuei ingurumena babesteko ardura bere egitea exijitu dietelako, eta ingurumenaren gaineko kezka **aintzakotzat ez hartzea** oztopatu dutelako. Berria - Gaiak

Haur bat bezalakoa da horrela jartzen denean, are haurrago arnoa edaten duenean, eta ez genituzke, beraz, haren hitzak hain **aintzakotzat hartu** behar. Joan Mari Irigoien

Har itzazue aintzakotzat. Juan Kruz Igerabide

Ondo egiten du Josebak hori galdetzen, **aintzakotzat hartzeko** moduko neurri bakarretakoa baita euskaldunon borondatea. Hasier Etxeberria

Alderantziz, pentsatzen dut fonologialari on batek beti jakin behar duela egungo fonetikaren egoeraren berri; era berean, fonetikariak fonologiaren emaitzak ezagutu behar ditu eta **aintzakotzat hartu**. Lourdes Oñederra

Aldagai ugari **hartzen dituzte aintzakotzat** ikertzaileek. Berria - Gaiak

Bai batean bai bestean, antzekoa izan zen Jexuxen haserrea; ordura arte inork **aintzakotzat hartu** ez eta, etsita zegoen aspaldian. Xabier Etxabe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aintzakotzat ez (6); **aintzakotzat ez hartzea** (3); **aintzakotzat hartu** (76); **aintzakotzat hartu behar** (9); **aintzakotzat hartu beharko** (4); **aintzakotzat hartu beharreko** (5); **aintzakotzat hartu ez** (8); **aintzakotzat hartu gabe** (7); **aintzakotzat hartua** (4); **aintzakotzat hartuko** (11); **aintzakotzat harturik** (4); **aintzakotzat hartuta** (10); **aintzakotzat hartuz** (11); **aintzakotzat hartzea** (12); **aintzakotzat hartzeko** (19); **aintzakotzat hartzeko moduko** (6); **aintzakotzat hartzekoa** (5); **aintzakotzat hartzen** (73); **aintzakotzat hartzen dutenen** (3); **aintzakotzat hartzen ez** (8); **ez du aintzakotzat** (6); **ez zuen aintzakotzat** (7); **hartzen ditu aintzakotzat** (3); **herria aintzakotzat hartzen** (3); **oso aintzakotzat** (8); **oso aintzakotzat hartu** (3); **osotasuna aintzakotzat** (3)

---

aintzat

1 ***aintzat eduki*** *(ETCn **12** agerraldi)* kontuan eduki.

Aintzat eduki behar dute hori, eta, ondorioz, "ahal den neurrian interesa duten lurrak mantenduz, eta, batzuk erabiliz gero, beste zenbait emanez". Berria - Euskal Herria

Horietan guztietan atseden bila ibili nintzen, baina paradisuko ate aurrean kerubina baitzegoen zutik gar distiratsua zerion ezpatarekin, ez nuen atsedenik aurkitu, harik eta Goi-goikoak Aitaren altzotik mundura jaitsi eta nire bila etortzea guztiz **aintzat eduki** zuen arte. Askoren artean

Bazen hirugarren alderdi bat ere, aurreko biak nahasten zituena: laguna nintzen, ordurako bazenekien **aintzat zinduzkadala**, baina ez zenuen guztiz galdu laguna baino zerbait gehiago bilakatuko nintzen esperantza; nik ez nizun itxaropen hori inoiz hauspotu. Xabier Mendiguren Elizegi

2 ***aintzat eman*** *(ETCn **5** agerraldi)* kontuan izan.

Argitasun hauek **aintzat** eta ontzat **emanik**, beraz, hondamen handiek astinduriko lurrak azalean dardar egiten du, denborak azpiko haitzulo izugarriak hondoratzen dituenean. Xabier Amuriza

3 ***aintzat hartu*** *(ETCn **31.282** agerraldi)* kontuan hartu; asumitu.

Aintzat hartuko ditugu ageriko lau horiek eta Cambacérès magistratua, berori izan baitzen kode proiektu zenbaitzuen egile eta maizenik ere, Napoleonen aholkulari errimea lege gorabeheretan. Andres Urrutia

Hura hil ondoren, berriz, don Pedro Hurtadok oso **aintzat hartzen** zituen haren bertute handiak. Josu Zabaleta

Gure eskemen arabera antolatzen dugu material berria, lehenagotik dakigunera egokitzen ez dena **aintzat hartu** gabe. Joseba Sarrionandia

Adar jotze xume eta la-gun artekoak izaten ziren, ez inola ere **aintzat hartzekoak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskuizkribu hau **aintzat hartuko** duen argitaratzaileak nahigabe luzeen arriskuan jarriko du zalantzarik gabe bere burua. Joxan Elosegi

Jada ez naizela neu **aintzat hartu** behar dena. Hasier Etxeberria

Berean jarraitzen zuten euskaltzainek, olerkaria **aintzat hartu** gabe. Juan Luis Zabala

Gauza bat aipatu behar dut: nire egoera azaltzera bultzatzen ninduen nahiak ez zituen **aintzat hartzen** nire konfidenteen ideiak eta pentsa zezaketena. Joseba Urteaga

Liburua irakurtzeko orduan **aintzat hartu** beharreko zenbait ohar. Lourdes Oñederra

Baina Del Valle ohituta zegoen bere bihozkadak **aintzat hartzera**. Alberto Ladron Arana

Erran zitekeen nire galderak mahaigaineratzen zuen arazoa lehen aldiz ari zela **aintzat hartzen**. Aingeru Epaltza

Uste dut, bestalde, kontuok aski zehatzak direla, diru-sarreretan **aintzat hartu** baitut Enekok aurtengo fitxaketan izango duen igoera ere, %2, iaz hogei partida baino gehiago jokatu zituenez gero. Joan Mari Irigoien

Ezin nituen **aintzat hartu** beste lokalak. Anton Garikano

Elkarri luze hazka egiteak, elkarrekin masturbatzeak bezala, txandakako jolasa **aintzat hartzea** eskatzen digu. Luis Elberdin

-Ezagutzen haut, Santxo -Don Kijotek erantzun- eta hire hitzak ez ditiat **aintzat hartuko**. Patxi Ezkiaga

Norberaren sufrikarioak eta atsekabeak bestek **aintzat hartu** eta eskerturik ikustea bizkorgarria delako. Txillardegi

Badirudi eskaintza **aintzat hartzen** ari dela. Joxemari Iturralde

Ez fraideak bakarrik, herriaren zuhurtzia ere kontra neukan, "filosofia baino hobe da oilozopia" esaera zaharra **aintzat hartzera** behintzat. Joxerra Garzia

Beraz, galdera **aintzat hartu** eta ezetz erantzun behar izan nion. Xabier Montoia

Interesgarria dateke duela zenbait urte dezifratu ahal izan nuen xehetasun txiki bat **aintzat hartzea**. Xabier Kintana

Luxemburg hizlari apartaren ustez, iraultzaileak gizarte aldaketak eta herriaren nahia **aintzat hartu** behar ditu, bestela, egitez, ez da etsaiaren kolaboratzaile baino. Markos

Zapiain

Ekinaldia zabaltzen ari zen; amorratua behar zuen izan, tiroketaren zalaparta **aintzat hartuz** gero. Koro Navarro

Artean ezagutzen ez bazintudan ere, **aintzat hartzen** zintudan. Antton Olano

Losintxatua sentitu zen; lehen **aintzat hartu** ez, eta orain arindu egin zen Ramsay andrearen hizketa saio harekin. Anton Garikano

Hiriko giro unibertsitarioak hainbesterako emango duela **aintzat harturik**, Padua edo Padua inguruko idazle gazteei buruzko zerbait topatu nahi nuen. Anjel Lertxundi

Orduan ez nuen oso **aintzat hartu**, gure artean atertu gabe elkarri esaten dizkiogun azpizentzu sexualeko beste esaldi bat bezala ulertu nuen. Koldo Izagirre

Haiek ez ziren guretzat **aintzat hartzeko** modukoak inoiz izan. Pako Aristi

Gaztea inguratu egin zitzaion, baina, zalantza une baten ondotik, bizkarrez jarri zitzaion, hitzik esan gabe, agurearen eskaria **aintzat hartu** gabe. Patxi Zubizarreta

Roboamek, ordea, ez zuen **aintzat hartu** kontseilarien aholkua; baizik eta berarekin batera hazi ziren eta bere zerbitzura zituen gazteei galdegin zien: Elizen arteko biblia

Obra horretan gogor kritikatu zuen ordu arte oso **aintzat hartua** izan zen liburu bat eta horrek Gerrako Ministeritzaren gaitzespena ekarri zion. Jon Muñoz

Jaffer zaulia da, hiztun bikaina; ezaguna eta **aintzat hartua** Hyderabadeko tren geltokiko langileen artean. Gotzon Garate

Bakanak baitira oso, zeremonia arteko hutsarte fin ttiki horiek **aintzat hartu**, eta gogoan iraultzika paratzen dituztenak. Patziku Perurena

Arratiako gizotso hori - betiere Barandiaranek idatzitakoa **aintzat harturik** - gizaki baten eta otso baten arteko sexu harremanaren ondorio zen. Martin Anso

Berak haiek bizirik mantendu, eta haiek bera ez zuten **aintzat hartzen**. Anton Garikano

Lanerako prest etorri ziren arren, bizitzaren bigarren erdian sarturik, bizimodu lasaia ere **aintzat hartzekoa** zen. Urtzi Urrutikoeetxea

Axolagabea zara, lan-berri bat, ez duzu zeurea besterik **aintzat hartzen**, ez diozu batere baliorik ematen nire lanari. Anjel Lertxundi

Baina hori hala bada, gizakia ez badute egin duenagatik soilik balioesten, egin nahi zuena ere **aintzat hartzen** bada, orduan... orduan martirien argi-koroaren merezidunа zen. Jose Morales

Esatean ematen duen plazerrarengatik bakarrik balitz ere, merezi luke **aintzat hartzea** definizio horrek. Joxerra Garzia

Lewis Thomas-en iradokizuna **aintzat hartzera**, eragiten digun harridura-dosiaz neur daiteke lan baten interesa. Juan Garzia

Ez da behar bezala **aintzat hartzen** belarriak oreka-organo gisa burutzen duen lan bikaina. Irene Aldasoro

Edozein gisaz, Mendigurenek desiraren eta desiratuaren artekoari, oro har, begiratzen badio ere, bereziki **aintzat hartzen** du tarte hori gure gizartean zehazki betetzen ohi duena: irudia alegia. Xabier Mendiguren Elizegi

Inork ez zuen polizia-kontu hura **aintzat hartu**, eta Josu R, bere komentarioak besteei enbarazu egiten ziela konturaturik, isildu egin zen. Pedro Alberdi

Gavoillek ez du **aintzat hartzen** bere burua, ez Israelek ere. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agintariek aintzat (5); **aguirrek aintzat** (4); **aholkua aintzat** (6); **aholkua aintzat hartu** (5); **aholkuak aintzat** (3); **aintzat bere** (3); **aintzat ere** (8); **aintzat ere hartzen** (3); **aintzat eta** (4); **aintzat ez** (47); **aintzat ez hartzea** (27); **aintzat ez hartzeko** (9); **aintzat har** (29); **aintzat har ditzan** (4); **aintzat hartu** (840); **aintzat hartu arren** (3); **aintzat hartu behar** (139); **aintzat hartu beharko** (44); **aintzat hartu beharra** (4); **aintzat hartu beharreko** (17); **aintzat hartu beharrekoa** (6); **aintzat hartu beharrekoak** (3); **aintzat hartu dira** (3); **aintzat hartu ditu** (23); **aintzat hartu dituen** (3); **aintzat hartu dituzte** (9); **aintzat hartu dituztela** (4); **aintzat hartu du** (45); **aintzat hartu duela** (4); **aintzat hartu dute** (15); **aintzat hartu ere** (10); **aintzat hartu eta** (68); **aintzat hartu ez** (31); **aintzat hartu gabe** (89); **aintzat hartu izan** (3); **aintzat hartu nahi** (21); **aintzat hartu nire** (3); **aintzat hartu ondoren** (3); **aintzat hartu zituen** (6); **aintzat hartu zituzten** (4); **aintzat hartu zuela** (5); **aintzat hartu zuen** (18); **aintzat hartu zuten** (9); **aintzat hartua** (24); **aintzat hartua izan** (3); **aintzat hartua izateko** (6); **aintzat hartuak** (13); **aintzat hartuak izan** (5); **aintzat hartuak izatea** (3); **aintzat hartuko** (135); **aintzat hartuko dira** (5); **aintzat hartuko ditu** (4); **aintzat hartuko dituen** (11); **aintzat hartuko ditugu** (4); **aintzat hartuko dituzte** (4); **aintzat hartuko dituztela** (5); **aintzat hartuko du** (6); **aintzat hartuko duela** (3); **aintzat hartuko duen** (5); **aintzat hartuko dutela** (4); **aintzat hartuko ez** (14); **aintzat harturik** (29); **aintzat hartuta** (408); **aintzat hartuta egin** (4); **aintzat hartuta ere** (5); **aintzat hartuta eta** (5); **aintzat hartuta ez** (4); **aintzat hartutako** (7); **aintzat hartuz** (178); **aintzat hartuz egin** (6); **aintzat hartuz eta** (3); **aintzat hartuz gero** (59)

aintzat hartzea (86); **aintzat hartzea erabaki** (4); **aintzat hartzea espero** (3); **aintzat hartzea eta** (8); **aintzat hartzea ezinbestekoa** (3); **aintzat hartzeak** (7); **aintzat hartzearen** (4); **aintzat hartzeari** (4); **aintzat hartzeke** (3); **aintzat hartzeko** (130); **aintzat hartzeko eskaera** (3); **aintzat hartzeko eskatu** (33); **aintzat hartzeko eskatzen** (4); **aintzat hartzeko eta** (4); **aintzat hartzeko moduko** (11); **aintzat hartzeko modukoa** (8); **aintzat hartzeko modukoak** (5); **aintzat hartzekoa** (23); **aintzat hartzekoa da** (12); **aintzat hartzekoak** (8); **aintzat hartzekoak dira** (3); **aintzat hartzen** (408); **aintzat hartzen ari** (5); **aintzat hartzen bada** (13); **aintzat hartzen badira** (3); **aintzat hartzen badugu** (10); **aintzat hartzen ditu** (13); **aintzat hartzen dituela** (4); **aintzat hartzen dituen** (3); **aintzat hartzen dituzte** (3); **aintzat hartzen du** (10); **aintzat hartzen duela** (6); **aintzat hartzen duen** (20); **aintzat hartzen duena** (5); **aintzat hartzen dugu** (4); **aintzat hartzen dute** (3); **aintzat hartzen dutela** (7); **aintzat hartzen duten** (12); **aintzat hartzen eta** (4); **aintzat hartzen ez** (48); **aintzat hartzen salatu** (7); **aintzat hartzen zituen** (5); **aintzat hartzera** (14); **aintzat izan** (4); **aintzat izanda** (3); **aldaketak aintzat** (4); **aldarrikapenak aintzat** (5); **alderdiak aintzat** (3); **aniztasuna aintzat** (6); **aniztasuna aintzat hartuta** (3); **arazoak aintzat** (3); **argudioak aintzat** (3); **arte aintzat** (4); **arte aintzat hartu** (3); **aukera aintzat** (6); **aukera aintzat hartzen** (3); **aukera guztiak aintzat** (3); **aukera hori aintzat** (3); **aurrekariak aintzat** (4)

aurrekariak aintzat hartuz (3); **autodeterminazio eskubidea aintzat** (7); **auzitegi nagusiak aintzat** (5); **baina aintzat** (9); **baina aintzat hartu** (6); **baitira aintzat** (5); **bakarrik aintzat** (4); **bat aintzat** (12); **bat aintzat hartuta** (3); **batasuna aintzat** (4); **batasuna aintzat hartu** (4); **baterako aintzat** (3); **batzordeak aintzat** (4); **batzordeak aintzat hartu** (4); **batzuk aintzat** (6); **batzuk aintzat hartuta** (3); **behar bezala aintzat** (4); **behar da aintzat** (7); **behar dira aintzat** (12); **behar ditu aintzat** (3); **beharko ditu aintzat** (3); **beharrak aintzat** (3); **bereziki aintzat** (4); **berezitasunak aintzat** (3); **bezala aintzat** (8); **bezala aintzat hartzen** (4); **bidea aintzat** (4); **biktimak aintzat** (3); **biktimak aintzat hartu** (3); **borondatea aintzat** (3); **bozak aintzat** (3); **da aintzat** (38); **da aintzat hartu** (8); **da aintzat hartzen** (8); **dagoela aintzat** (4); **dagoela aintzat hartuta** (3); **datu horiek aintzat** (3); **datuak aintzat** (11); **datuak aintzat hartu** (3); **datuak aintzat hartuta** (7); **dela aintzat** (36); **dela aintzat hartuta** (17); **dela aintzat hartuz** (8); **dela aintzat hartzen** (8); **den aintzat** (8); **den aintzat hartuta** (5); **dena aintzat** (4); **dena aintzat hartu** (3); **denak aintzat** (4); **dira aintzat** (34); **dira aintzat hartu** (5); **dira aintzat hartzen** (4); **direla aintzat** (23); **direla aintzat hartu** (3); **direla aintzat hartuta** (10); **direla aintzat hartuz** (6); **ditu aintzat** (53); **ditu aintzat hartu** (15); **ditu aintzat hartzen** (12); **dituela aintzat** (12); **dituela aintzat hartu** (5); **dituela aintzat hartuta** (3); **dituela aintzat hartzen** (3); **ditugu aintzat** (9); **ditut aintzat** (3); **dituzte aintzat** (24); **dituzte aintzat hartu** (5); **dituzte aintzat hartzen** (8); **dituztela aintzat** (4); **du aintzat** (52); **du aintzat hartu** (22); **du aintzat hartzen** (16); **du kasik aintzat** (3); **duela aintzat** (28); **duela aintzat hartu** (5); **duela aintzat hartuta** (12); **duela aintzat hartuz** (3); **duela aintzat hartzen** (5); **duelako aintzat** (4); **duelako aintzat hartzen** (3); **duen garrantzia aintzat** (3); **duen maila aintzat** (3); **dugu aintzat** (10); **dugu aintzat hartzen** (3); **dugula aintzat** (3); **dut aintzat** (3); **dute aintzat** (20); **dute aintzat hartu** (5); **dute aintzat hartzen** (4); **dutela aintzat** (17); **dutela aintzat hartu** (5); **dutela aintzat hartzen** (3); **dutelako aintzat** (4); **egindako eskaera aintzat** (3); **egindako lana aintzat** (3); **egoera aintzat** (23); **egoera aintzat hartu** (3); **egoera aintzat hartuta** (14); **egoera aintzat hartzeko** (3); **ekarpena aintzat** (3); **ekarpenak aintzat** (4); **ekonomikoa aintzat** (4); **ekonomikoa aintzat hartuta** (3); **emaitza horiek aintzat** (3); **emaitzak aintzat** (11); **emaitzak aintzat hartuta** (6); **emakumeak aintzat** (4); **emakumeak aintzat hartzeko** (3); **epaileak aintzat** (3); **eragina aintzat** (3); **ere aintzat** (91); **ere aintzat hartu** (42); **ere aintzat hartuko** (5); **ere aintzat hartzeko** (7); **ere aintzat hartzekoa** (3); **ere aintzat hartzen** (22); **eredua aintzat** (3); **errealitatea aintzat** (5); **erreferenduma aintzat** (3); **erreferenduma aintzat hartuko** (3); **esanak aintzat** (3); **esandakoa aintzat** (7); **eskaera aintzat** (38); **eskaera aintzat hartu** (22); **eskaera aintzat hartuz** (5); **eskaera aintzat hartzen** (4); **eskaerak aintzat** (10); **eskaerak aintzat hartu** (4); **eskaintza aintzat** (5); **eskaintza aintzat hartu** (4); **eskakizunak aintzat** (6); **eskakizunak aintzat ez** (3); **eskariak aintzat** (3); **eskubidea aintzat** (9); **eskubidea aintzat hartzen** (4); **eskubideak aintzat** (19); **eskubideak aintzat hartu** (5); **eskubideak aintzat hartzeko** (4); **eskubideak aintzat hartzen** (6); **eta aintzat** (44); **eta aintzat hartu** (18); **eta aintzat hartuko** (3); **eta aintzat hartzen** (10); **eta hori aintzat** (10); **etxebizitza sailak aintzat** (3); **euren iritzia aintzat** (3); **euren irizpideak aintzat** (4); **euskal herria aintzat** (19); **euskara aintzat** (7); **euskara aintzat hartzen** (4)

ez aintzat (8); **ez aintzat hartu** (3); **ez da aintzat** (17); **ez dela aintzat** (6); **ez dira aintzat** (13); **ez direla aintzat** (5); **ez ditu aintzat** (30); **ez dituela aintzat** (10); **ez ditugu aintzat** (3); **ez dituzte aintzat** (14); **ez dituztela aintzat** (4); **ez du aintzat** (35); **ez duela aintzat** (9); **ez duelako aintzat** (3); **ez dugu aintzat** (6); **ez dute aintzat** (11); **ez dutela aintzat** (8); **ez dutelako aintzat** (4); **ez nuen aintzat** (3); **ez zen aintzat** (5); **ez zituen aintzat** (13); **ez zituzten aintzat** (5); **ez zuela aintzat** (3); **ez zuen aintzat** (15); **ez zuten aintzat** (8); **ezaugarriak aintzat** (7); **ezaugarriak aintzat hartuta** (4); **ezberdintasuna aintzat** (3); **ezberdintasuna aintzat hartu** (3); **gabe aintzat** (5); **gabe aintzat hartu** (3); **gabeziak aintzat** (3); **gaituzte aintzat** (3); **garela aintzat** (3); **garrantzia aintzat** (8); **garrantzia aintzat hartuta** (4); **gaueko markak aintzat** (3); **gehiago aintzat** (3); **geratzen direla aintzat** (3); **gertatutakoa aintzat** (3); **gisa aintzat** (7); **gizarteak aintzat** (3); **gomendioak aintzat** (3); **guztia aintzat** (5); **guztiak aintzat** (33); **guztiak aintzat hartu** (9); **guztiak aintzat hartuko** (5); **guztiak aintzat hartuta** (4); **guztiak aintzat hartuz** (4); **guztiak aintzat hartzea** (4); **guztiak aintzat hartzen** (5); **hartu dituzte aintzat** (5); **hartu du aintzat** (6); **hartu dute aintzat** (5); **hartu zituen aintzat** (3); **hartu zuen aintzat** (3); **hartu zuten aintzat** (4); **hartuko dira aintzat** (4); **hartuko dute aintzat** (3); **hartzen aintzat** (3); **hartzen da aintzat** (4); **hartzen dira aintzat** (3); **hartzen ditu aintzat** (13); **hartzen dituzte aintzat** (3); **hartzen du aintzat** (6); **hartzen zituen aintzat** (3); **hau aintzat** (9); **hau aintzat hartu** (4); **hauek aintzat** (5); **helegite aintzat** (3); **helegite aintzat hartu** (3); **helegitea aintzat** (16); **helegitea aintzat hartu** (10); **helegitea aintzat hartuz** (3); **herria aintzat** (20); **herria aintzat hartu** (3); **herria aintzat hartzea** (4); **herria aintzat hartzen** (12); **herritar guztiak aintzat** (4); **historikoak aintzat** (3); **hitza aintzat** (4); **hitza aintzat hartuko** (3); **hitzak aintzat** (6); **honek aintzat** (3); **honek aintzat hartu** (3); **hori aintzat** (57); **hori aintzat ez** (3); **hori aintzat hartu** (18); **hori aintzat hartuta** (18); **hori aintzat hartzeko** (4); **hori aintzat hartzen** (6); **hori ere aintzat** (6); **hori guztia aintzat** (4); **horiek aintzat** (30); **horiek aintzat hartu** (9); **horiek aintzat hartuta** (10); **horiek aintzat hartuz** (3); **horiek aintzat hartzeko** (3); **hura aintzat** (7); **hura aintzat ez** (3); **ikusitakoa aintzat** (3); **ikuspegia aintzat** (4); **indarra aintzat** (4); **inoiz aintzat** (4); **inoiz aintzat hartu** (3); **inork aintzat** (8); **inork aintzat hartzen** (5); **interesak aintzat** (3); **iritzia aintzat** (18); **iritzia aintzat hartu** (8); **iritzia aintzat hartzen** (6); **iritziak aintzat** (5); **iritziak aintzat hartu** (3); **irizpideak aintzat** (8); **irizpideak aintzat hartuz** (4); **izaera aintzat** (3); **izan dela aintzat** (4); **izango dela aintzat** (3); **jainkoa aintzat** (3); **jokatuko dela aintzat** (3); **jokoa aintzat** (4); **kasik aintzat** (3); **kontu horiek aintzat** (3); **kopurua aintzat** (8); **kopurua aintzat hartuta** (5); **lana aintzat** (12); **lana aintzat hartu** (3); **lana aintzat hartzeko** (3); **legea aintzat** (5); **legeak aintzat** (7); **legebiltzarrak aintzat** (4); **legebiltzarrak aintzat hartu** (3); **legedia aintzat** (3); **legez aintzat** (3); **maila aintzat** (6); **maila aintzat hartuta** (5); **markak aintzat** (3); **markak aintzat hartu** (3); **mugak aintzat** (4); **nagusiak aintzat** (8); **nagusiak aintzat hartu** (6); **nahia aintzat** (3); **nortasuna aintzat** (3); **nuen aintzat** (6); **oinarriak aintzat** (5); **oinarriak aintzat hartuta** (3); **oinarrizko eskubideak aintzat** (3); **ondorioak aintzat** (4); **orain aintzat** (3); **orduan aintzat** (3); **orduan aintzat hartu** (3); **oso aintzat** (14); **oso aintzat hartu** (3); **oso aintzat hartzen** (4); **osoa aintzat** (5); **osoa aintzat hartzen** (3); **osoko datuak aintzat** (3); **partida aintzat** (3); **partidak aintzat** (3); **pisua aintzat** (3); **politikoa aintzat** (4); **politikoa aintzat hartuta** (3); **politikoak aintzat** (7); **probak aintzat** (3); **probak aintzat hartuta** (3); **proposamena aintzat** (16); **proposamena aintzat hartu** (7); **proposamenak aintzat** (7); **proposamenak aintzat hartu** (3); **puntuak aintzat** (3); **puntuak aintzat hartuta** (3); **sailak aintzat** (5); **sailak aintzat hartu** (5); **sailkapena aintzat** (3); **sailkapena aintzat hartuta** (3); **salaketa aintzat** (4); **salaketak aintzat** (5); **salaketak aintzat hartu** (4); **soilik aintzat** (5); **sufrimendua aintzat** (4); **txostena aintzat** (4); **zalaparta aintzat** (3); **zein den aintzat** (5); **zela aintzat** (5); **zen aintzat** (8); **zen aintzat hartu** (3); **zirela aintzat** (3); **zituela aintzat** (4); **zituen aintzat** (19); **zituen aintzat hartu** (9); **zituen aintzat hartzen** (4); **zituzten aintzat** (8); **zituzten aintzat hartu** (5); **zuela aintzat** (5); **zuen aintzat** (22); **zuen aintzat hartu** (12); **zuen aintzat hartzen** (3); **zutela aintzat** (4); **zutela aintzat hartuta** (3); **zuten aintzat** (13); **zuten aintzat hartu** (5); **zuten aintzat hartzen** (3); **zuzenketa aintzat** (4); **zuzenketak aintzat** (3)

aintzatespen *iz* errekonozimendua.

EAJko presidente ohi Xabier Arzalluzen ustez, Eusko Jaurlaritzaren Estatutu Berrirako Proposamena ez da Gernikako Estatutuaren erreforma hutsa, autodeterminazio eskubidea planteatzeko modu bat baizik: "Herri honen izaeraren eta borondatearen **aintzatespena** da. Berria - Euskal Herria

Ezinbesteko osagaia: Espainiako trantsizioa biktimei **aintzatespenik** eta ordaintzarik eskaini gabe eta egi judiziala argitu gabe eta memoria kritikorik gabe egin zen. Berria - Euskal Herria

---

aintzatetsi, aitzatesten *du* ad errekonozitu.

Norbere tradizioaren balioak **aintzatetsi**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

aintzatsu *izond* aintzaz betea.

Erromatik itzultzean, Kristo gurutziltzatu eta **aintzatsuaren** irudiarekin topo egiten du aurrez aurre San Damiango kaperatxoan. Askoren artean

---

aintzatu, aintza(tu), aintzatzen du *ad* aintza eman.

Bihotzean gorde eta maita dezagun, ohora, adora, zerbitza, gorets eta bedeinka, **aintza** eta goraipa. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zeruan aintzatua** (3)

---

aintzetsi, aintzesten du *ad* aintzat hartu.

Menéndez Pelayo ortodoxiaren paladinoak baino ez dute gutxiago **aintzesten** eta begiratzen izpiritu espainol hori beren propositoetan Sanz del Río eta jarraiketari krausistek. Joxe Azurmendi

---

aintzildar *izlag/iz* Aintzilakoa, Aintzilari dagokiona; Aintzilako biztanlea.

Gure agiantzarik hoberenak desiratzen diotegu bi kuple gazte horieri **aintzildar** eta arnegitar guzien izenean. Herria

---

aintzin ik **aitzin**.

---

aintzina ik **aitzina**.

---

aintzinako ik **aitzinako**.

---

aintzinalde ik **aitzinalde**.

---

aintzinamendu ik **aitzinamendu**.

---

aintzinarazi ik **aitzinarazi**.

---

aintzinatasun ik **antzinatasun**.

---

aintzinate ik **antzinate**.

---

aintzinatu ik **aitzinatu**.

---

aintzinatze ik **aitzinatze**.

---

aintzindari ik **aitzindari**.

---

aintzindaritasun ik **aitzindaritasun**.

---

aintzindegi ik **aitzindegi**.

---

aintzindu ik **aitzindu**.

aintzinka ik **aitzinka**.

aintzinkondu ik **aitzinkontu**.

aintzinkontu ik **aitzinkontu**.

aintzinlari ik **aitzinlari**.

aintzinpartida ik **aitzinpartida**.

aintzinsolas ik **aitzinsolas**.

aintzintto ik **aitzintto**.

aintzinttoan ik **aitzinttoan**.

aintzira **1** *iz* ur geldizko eremu iraunkorra eta aski handia. ik**lintzura**; **zingira**.

Osterantzean, **aintzira** bat bezain bare zegoen itsasoa. Anjel Lertxundi

Ikastetxe inguruko mendiek izotzaren kolore grisa hartu zuten eta **aintzirak** altzairu hotzaren kolorea. Iñaki Mendiguren

Jordan ibaia zuen muga, lurraldea ibaiaz ekialdera Genesaret **aintziraraino** hedatzen zelarik. Elizen arteko biblia

Balkash **aintziratik** hara jo zuen, bidean zeuden kirgizen herrietako bizilagunak berekin eramanez. Karlos Zabala

Izotz puskak horrela lerratzen ziren bitartean, natur gertakari bitxiak izaten ziren Baikal **aintziraren** gainazalean. Karlos Zabala

Mendi-kasko soiletan errekak sortuko ditut, ibarretan iturriak; basamortua **aintzira** bihurtuko dut. Elizen arteko biblia

Aintzira haserretzen ari zen, haize handia zebilen eta. Elizen arteko biblia

Artur erregeri borroka batean Eskalibur ezpata **aintzira** batera erori zitzaiolarik, **Aintzirako** Damak atera zion bertatik, eta ezpata berritu bat eskaini. Juan Kruz Igerabide

Une hartan, esnatu ziren Van **aintzirako** bazterrak. Fernando Rey

Aintziraren gaina huts-hutsik zegoen. Bernardo Atxaga

Harryrengandik urruntzen ari zen trosta isilean, **aintziraren** ur-azal beltzaren gainean. Iñaki Mendiguren

Ahmet eta Gülbahar eskutik helduta agertu ziren Araraten, Küp **aintziraren** bazterrean, arrano handi dotoreen artean. Fernando Rey

Estigia **aintzirako** urek Akilesen gorputzean eragin zutena eragiten du pentsamentuan: zaurtezina eta suntsiezina bilakatzen du. Juan Garzia

Aintzirako ur hotzean biziberritu zaizkion hankak pisua berenganatzen ari dira berriz. Aingeru Epaltza

Aintzirako ur urdinari eta larruaren koloreko lurrari indar hordigarriko urrinak darizkie, eta usaina oso urrutira hedatzen da. Fernando Rey

Rieti **aintzirako** portu bateko ontzixka batean. Askoren artean

Inauterietako azken egunean, San Frantzisko Perugiako **aintzira** ondoan zegoela -gauerako ostatu eman zion bere deboto baten etxean, hain zuzen-, Jainkoak aditzera eman zion **aintzirako** uharte batera joan behar zuela garizuma hura egitera. Askoren artean

Lotoaren azpian etzaten da, **aintzirako** kanabera artean ezkutatzen. Elizen arteko biblia

Hain zuzen ere, asko dira Yeti izugarria edo Ness **aintzirako** munstroa ustez ikusi dutenak. Bernardo Atxaga

Biok, piztia eta sasiprofeta, sufrez sutan dagoen **aintzirara** jaurtiki zituzten bizirik. Elizen arteko biblia

Txerri-taldea ezpondan behera **aintzirara** amildu zen; bi milaren bat txerri ito ziren. Elizen arteko biblia

Hagrid ere han zegoen, **aintzira** zeharkatzen zuten txalupetara eramateko. Iñaki Mendiguren

Aintzira igaro ondoren, Genesaret lurraldera iritsi ziren. Elizen arteko biblia

Oso eskualde epel eta emankorra da, baina mendiz, glaziarrez eta **aintziraz** inguratua. Xabier Olarra

Eta, txalupara igorik, **aintziraz** bestaldera abiatu ziren, Kafarnaumerantz. Elizen arteko biblia

Txaikovskiren Beltxargen **Aintziraren** doinuak. Felipe Juaristi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eguzki-dirdaiaren islan, **aintzira** garden bat zirudien ordokiak, lurrunetan desegina, ostertz gris bat irazten utziz, argi-lausoturik, lurrunetatik zehar. Juan Garzia

Eskifaiak almadiari helduta jarraitzea lortzen bazuen, naufragoak **aintzira** barea igerian zeharkatu eta palmondoz hornituriko uharte haietako batera iritsi ahal izango ziren bizirik. Iñaki Mendiguren

Aintzira Handien lurraldetik, arratsaldeko bostak pasatxo. Patxi Zubizarreta

Beste batzuetan, ordoki handi oparoak ziren, landaredi trinkoz estalitako alderdiak, tarteka-tarteka **aintzira** txiki baten ispilu argiak urdindutakoak. Bide-zidor estua bat-batean **aintzira** beltz handi baten ertzera iritsi zen. Karlos Zabala

Lurraldeak erliebean eta azken xehetasuneraino zeuden irudikaturik: ibai eta **aintzira** urdinak, mendikate ñimiñoak, itsaso zabalak. Alberto Ladron Arana

Leiho bustien beste aldean, **aintzira** arreak bere aurretik igarotzen ziren lipar batez. Lopez de Arana

Ur nasaia, ezker aldera hedatuz, **aintzira** garbi eta bizi bat moldatzen duela. Piarres Aintziart

Aintzira lokartuak bezalakoak ziren; beiraren baten ñirñir iheskorrak olatu baten zilar distira argitzen zuen haien erdian. Karlos Zabala

Izan ere, ozeano hori arabiar **aintzira** bihurtua zen, bertara ezin zirelarik sartu egiptoar bitartekarien merkataritza-bazkide veneziarra. Iñaki Mendiguren

Deabrua, haiek liluratu zituena, su eta sufrezko **aintzirara** jaurtikia izan zen. Elizen arteko biblia

Suzko **aintzira** bigarren heriotza da. Elizen arteko biblia

Inork ez zion garrantzirik eman kontuari; baina euriak berean segitu zuen, konoak inbutuarena egin zuen, tapoiaren gainean hogei mila metro kubiko urezko **aintzira** bat formatu zen, eta artean ere inork ez zion garrantzirik eman. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aintzira -lur horietatik Astansobas eta Astoboa ibaietatik eta beste hainbatetatik ingurubiraka luzatuz, mendietan barrena ur-jauzietaraino iristen da.Baziren ehun gutxienez, eta beraiengana zetozen **aintzira** inguruan masa beltz bat osatuz. Santiago Iruretagoiena

Geroxeago, berriro agertu zitzaien Jesus bere ikasleei Tiberiades **aintzira** -ertzean. Elizen arteko biblia

Zakua bizkarrean, ireki berri zen mendi maxelan gorako bideari uko eginez, **aintzira** hegiko ohizko xendratik nenbilen. Itxaro Borda

Bitartean, aukera izango zen neskato patxadatsuari itsumustuan kontatzeko erabilitako hipotesiak, **aintzira** bazterrean gertatutako gauzak, astelehenako asturuak froga zehatzez emango zuen epaiaren itxarolarri dorpea. Juan Garzia

Gerasatarren lurraldera, Galileaz bestaldeko **aintzira** -bazterrera, iritsi ziren. Elizen arteko biblia

Jende-taldea, berriz, lehorrean zegoen, **aintzira** ondoan. Elizen arteko biblia

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bestea urdina zeukan artean, mendi-**aintzira** sakonek udako hilabeteetan izaten duten kolorekoa. Xabier Olarra

Lubaki, kobazulo, sator-zuloak ikusi nituen, soldaduen lurrezko estalki; izoztutako ibai-**aintzirak** ikusi nituen, hildakoak -ahoa bortizki irekia, begiak harriduraz zabalduak- erakusten. Felipe Juaristi

5 ***asfalto aintzira***

Babilonian aintzira bat dago izugarri handia, **Asfalto aintzira** deitzen dena, eta betun likidoa duena ur gainean; betun hori eta adreilu errea erabiliz murru bat egin zuen Semiramisek Babiloniaren inguru guztian. Santiago Iruretagoiena

6 ***glaziar aintzira*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Glaziar aintzirak goi mendietako lakuak dira. ETC-entziklopedia

Brasilgo varva direlakoak, duela 260 milioi urte **glaziar-aintzira** baten hondoan eraturiko harkaitzak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Glaziar-varvak **glaziar-aintzira** handien hondoan agertzen diren metaketak dira, eta oso estratifikazio ona izaten dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 ***glaziarpeko aintzira*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Glaziarpeko aintzira edo glaziarpeko lakua glaziar baten azpian dagoen aintzirari deritzo. ETC-entziklopedia

8 ***itsas aintzira***

Horrek ez zion, ordea, gosea berdindu Jonathani, nan-muturrak etengabe bustitzen baitzituen cocktailarena bezalako **itsas aintzira** baten pareko kolore berde bera zuen saltsa mehe, min eta fresko batean. Jon Muñoz

9 ***krater aintzira*** *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Krater aintzira eraketa geologiko bat da, oinarrian, sumendi baten galdaran eratutako aintzira bat edo maar bat. ETC-entziklopedia

Krater-aintziraz josita eta Afrikako elefanterik handienen bizileku diren oihan oparoz estalita dago Mount Marsabit, eta begirale emankor irauten du Keniaren iparraldeko harea mortuen gainean. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aintzira aldera (5); **aintzira bat** (26); **aintzira bat dago** (4); **aintzira bat zegoela** (3); **aintzira batean** (11); **aintzira baten** (11); **aintzira bazterrean** (11); **aintzira bazterreko** (6); **aintzira bazterreko fabrika** (4); **aintzira bazterrera** (3); **aintzira ertzean** (7); **aintzira eta** (8); **aintzira ez** (3); **aintzira gainean** (4); **aintzira handien** (6); **aintzira handietako** (6); **aintzira haren** (4); **aintzira hartako** (3); **aintzira hartako ur** (3); **aintzira inguruan** (3); **aintzira inguruko** (6); **aintzira ondoan** (5); **aintzira zeharkatzen** (3); **aintzirak eta** (4); **aintzirako uharte** (3); **aintzirako ur** (5); **aintzirako urek** (3); **aintziran ere** (3); **aintziran zehar** (4); **aintzirara amildu** (3); **aintzirara amildu zen** (3); **aintzirara bota** (3); **aintzirara joan** (3); **aintziraren bazterrean** (5); **aintziraren beste** (8); **aintziraren elezaharra** (3); **aintziraren ertzean** (6); **aintziraren inguruan** (14); **aintziraren inguruko** (3); **aintziraren ur** (3); **aintziraz bestaldean** (5); **aintziraz bestaldean** (5); **aintziraz bestaldera** (8); **aintziraz bestaldera** (8); **baikal aintzira** (4); **baikal aintzirako** (3); **baikal aintziraraino** (3); **batean aintzira** (3); **behera aintzirara** (3); **behera aintzirara amildu** (3); **dagoen aintzira** (3); **dute aintzira** (3); **edo aintzira** (3); **eta aintzira** (20); **eta aintzira bazterreko** (3); **eta aintzirak** (9); **eta aintziraren** (3); **ezpondan behera aintzirara** (3); **galileako aintzira** (3); **ibai eta aintzira** (3); **itsas aintzira** (4); **lancelot aintzirako** (3); **rietiko aintziran** (3); **senpereko aintzira** (7); **senpereko aintziran** (4); **senpereko aintziraren** (11); **senpereko aintziraren inguruan** (7); **volta aintziran** (3); **vostok aintzira** (4)

---

aintziratsu *izond* zingiratsua.

Beelzebul gisa eulien jainkoa da, euliak eguzki printzetatik sortzen baitira ur **aintziratsuetan** . Xabier Olarra

-Inporta al zaizu lo dagoen printzesari esan behar niokeen ipuina zuri, esna zauden printzesa horri, esatea? -aipatu zuen Khabul Khanek Brigidaren begi urdin **aintziratsuetan** bereak jarrita. Felipe Juaristi

Begi **aintziratsuak** neskatxarengana zabalduz. Felipe Juaristi

---

aintziratxo *iz* aintzira txikia.

Herria asko gustatzen zitzaidan, aberatsa zelako, batetik, eta gainerakoen bestelakoa zelako ere bai: inguruan, alde batetik, **aintziratxoak** zituen, eta bestetik pinu eta izai tantai ederrak. Josu Zabaleta

Lehendabizi **aintziratxoari** bira eman zioten; orain izozturik zegoen, bentaren aurrean zabaltzen den harkaitz zulo handiaren barrenean; gero haran maindirea bezain argi eta alde guztietatik gailur elurtuez inguratuari jarraitu zioten. Josu Zabaleta

Aintziratxoa leun-leun zegoen distiraz izarpean. Josu Zabaleta

Zazpietan **aintziratxo** hormatu baten ertzean ginen, eta iluna zen. Juan Garzia

Parke batean igel erraldoi batek metroren bat luze zen sugea jan zuen eta **aintziratxora** jauzi egin zuen lasai, sabela bete-bete eginda. Gotzon Garate

---

aintzur ik **aitzur**.

---

ainube *(orobat **aiñube** g.er.)* **1** *izond* itzaltsua.

Baina ez zen inor azaldu basotxo **ainube** hartan. Koldo Izagirre

Bidaia honetako paisajea bezain aldakor sentitzen naiz: noiz lehor noiz heze, noiz egutera noiz **ainube** , noiz bero noiz hotz. Patxi Zubizarreta

Nik ere horixe nahi nuen, papagorriaren beste alderdi **ainube** hori pittin bat azaldu, sinbologia errotuaren argi-itzalak elkarren aldamenean ipiniz. Patziku Perurena

Haatik, ibilera ez bezala, makal duzu barnea, **ainube** gogoa, arima lohi. Xabier Montoia

2 (izen gisa) leku itzaltsua.

Eguzki aldera Baionako bide nagusi eta alaitsuak neurtzen du gure askatasuna; **ainube** aldera mendi baso, baserri-etxe zoragarriak. Jokin Urain

---

ainube *(orobat **aiñube** g.er.)* **1** *izond* itzaltsua.

Baina ez zen inor azaldu basotxo **ainube** hartan. Koldo Izagirre

Bidaia honetako paisajea bezain aldakor sentitzen naiz: noiz lehor noiz heze, noiz egutera noiz **ainube** , noiz bero noiz hotz. Patxi Zubizarreta

Nik ere horixe nahi nuen, papagorriaren beste alderdi **ainube** hori pittin bat azaldu, sinbologia errotuaren argi-itzalak elkarren aldamenean ipiniz. Patziku Perurena

Haatik, ibilera ez bezala, makal duzu barnea, **ainube** gogoa, arima lohi. Xabier Montoia

2 (izen gisa) leku itzaltsua.

Eguzki aldera Baionako bide nagusi eta alaitsuak neurtzen du gure askatasuna; **ainube** aldera mendi baso, baserri-etxe zoragarriak. Jokin Urain

---

ainuri *iz* intziria.

Erruz ikaratu zen hondartzan zegoen jendea, ustez eta arima haien protesta bizi eta negar benetakoak zirela itsaso beltzaren arrabots artetik etengabe heltzen zitzaizkien **ainuri** luzeak. Pako Aristi

---

ainzinttoan ik **aitzinttoan**.

---

aio[1] *interj* joatean agurtzeko erabiltzen den hitza. ik**adio**; **agur**.

Inori **aio** esan gabe joatea, ordea, motza iruditzen. Arantxa Iturbe

-Aio, Neville! -hots egin zion Stanek. Iñaki Mendiguren

Kolpez, haren ikustera joateko gutiziak hartu ninduen eta aitari doi-doia **"aio"** erranik, telefonoa pausatu nuen. Daniel Landart

Horretan hasi nintzen pentsaketan, saltxitxoi bokata jaten ari nintzela: beste hiru urte gehiago eutsi, eta gero... **aio** Pelaio! Jesus Mari Mendizabal

-Maittea, erran **aio** berriz Joanesi, **aio**! Aingeru Epaltza

Tamala da, baina... **aio**. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 1 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adeitasunik gabeko aio** (1); **aio aio** (1); **aio aiomaka** (1); **aio aiomaka aldamenetik** (1); **aio arraio** (1); **aio ba** (1); **aio berriz** (1); **aio berriz joanesi** (1); **aio erranik** (1); **aio esan** (1); **aio esan gabe** (1); **aio pelaio** (2); **aio tripako** (1); **aio tripako mina** (1); **bihar arte aio** (2); **diren aio** (1); **doi doia aio** (1); **egin aio** (1); **egin aio aio** (1); **erran aio** (1); **erran aio berriz** (1); **inori aio esan** (1); **jaso eta aio** (1); **lehenengoak aio bizkaitarrari** (1); **zutik eta aio** (1)

---

aio[2] *interj* zaldiei eta beste zama abereei aurrera egin dezaten esaten zaien hitza.. ik**arre**[2].

Zegoen bezala eseri, burua eskuen artean hartu eta larrera begiratu zuen, eta ordurako gurdia bete bete eginda zihoan han aldats behera astiro eta kulunka, idiek aittitte akuiluaz eta **aio** aiomaka aldamenetik gidari zutela. Joseba Sarrionandia

---

aiots *iz* intziria, aienea.

Katu zaurituaren moduan egin zuen **aiots** baten batek kanpoan eta ta ta ta ta errafagak entzun ziren berriro luzaroan. Joseba Sarrionandia

Zuraren zirrikituetatik antsiak eta **aiotsak** iristen zaizkie, dantzan denak haize gorrietan zamalka, uluka saldo ikusezinak. Alberto Barandiaren

---

aipabide *iz* aipatzeko bidea.

Izenpetu gabe uzten zituen, edo beste norbaiten sinadurarekin argitaratu, berak osoki asmatutako liburuak -Question de littérature legale delako bat horien artean, non imitazioaz, **aipabideaz**, plajioaz, literatur lapurretaz eta beste antzeko arazoez teorizatzen zuen. Bernardo Atxaga

---

aipaezin *izond* ezin aipatuzkoa.

Orain **aipaezina** den harekin -nire alabaz erditu izan zen harekin- izandako elkarrizketa ezin penagarriago hartaz geroztik eduki izan nuen buruan hilaren hamabosteko data hori, baina Chowder Bentatik bat-batean alde eginez geroztiko gertakizun-zurrunbilo hartan, kezkatuegi ibili nintzen datak gogoan edukitzeko. Oskar Arana

Eta ezin hura jabetzen zen haien gauez eta gorputzez, "han" **aipaezin hartan** ezereztu, mutildu, torturatu eta beharturiko gorputz gaixo haietaz batez ere, ezinezko ahanztura baterantz ihesi saiatzen baitziren bata zein bestea. Joxan Elosegi

Nori aitortu, lotsarik edo errurik sentitu gabe, horren modu ilunean nahasirik ageri direlarik aipatu ezin diren, nahasmendu eta enbarazu horretan **aipaezin** sentitzen ditugularik betiere **aipaezin** irauten duten pasio horien zurrunbiloan bizi garela? Joxan Elosegi

Ez, ez gauza guzti-guztiena, ezabatu egin bainuen Marinaren eta beste idunekoaren istorioa (goibelegia, umiliagarriegia), ez nion orobat ezer esan **aipaezinarekin izan** nuen telefonozko elkarrizketaren gainean, eta Letra gorriminaren iruzurraren xehetasun mingarriak ere saihestu egin nituen. Oskar Arana

Zerbait gertatzen da gela horretan, **aipaezinezko** zerbait: hor arima erauzten dute gorputzetik; une labur batez airean egoten da zintzilik bezala, bihurritzen eta kiribiltzen; gero hurrupatu bezala egiten dute, eta joanik da. Oskar Arana

---

aipagai *(orobat **aipagei** g.er.) iz* aipatzeko gaia.

Aipagaia izanen du: "De republica edo politikaz" agertu berri duen lan sakona. Herria

Hori ez bada gertatzen, aski zalaparta eginen dugu 2007ko lehendakaritzarako hautagai guztien **aipagaia** izan dadin. Berria - Euskal Herria

Lehen emankizuneko aipagaiak, Korrika, Baionan bukatuko baita aurten, Biltxokoko bertsularitzaren inguruko bizia, Literatura kronika, Jean Lukugarai pilota egilearekin elkarrizketa bat eta amatxiren errezeta. Herria

Aipagaietan, urteko gora-beherak, bereziki Ahurti eta St Laurent de Gosse herrietan iraganikako Bake Festibalaren aipamen sakona. Herria

Eliza erraldoiaren maldan bilduak ziren emazteek ez zuten beste **aipagairik**, Elisabeta zaharkituak uda honetan ere beharko zuela Marcel iloba gaztearekin, Bonneval edo Courville alderako bidaietan zinpurtu. Berria - Kultura

---

aipagarri 1 *iz izond* aipatua izatea merezi duena.

Aipatzekoa da hori, orduko Euskaltzaindia apaizez betea baitzen, apaizak izaki, beste salbuespen laiko **aipagarri** batzuk kendurik, euskararen garrantzia historian zehar serioki hartu duten ia-ia bakarrak. Pello Salaburu

Ahalegin horien emaitzak aurki ikusiko ditugu, mementoz esan dezaket enpresa **aipagarri** ugarik interesa azaldu digutela. Berria - Ekonomia

Ekonomiak agintzen duen globalizazioaren azpian beste fenomeno **aipagarri** bat gertatu da: aurreko mendeetan ez bezala, haustura politikoa gertatu da munduan. Pello Salaburu

Europako gainerako inperio kolonialetan, Indiaren salbuespen **aipagarria** eginez, metropolietako inbertsioak aski apalak ziren. Koro Navarro

Difusio bidez ere ur kopuru **aipagarri** bat galtzen da larruazaletik (litro erdi inguru egunean). Irene Aldasoro

Indoeuropar familia, esandakoaren adibide **aipagarria** da. Isabel Arrigain

Benetan **aipagarria** Michaelek etxean burua galtzen dueneko eszena. Berria - Kultura

Anai Markardok hasitako bideari jarraitu zion eta hiru urte eta hilabete batzuez gobernatu zuen probintzia modu **aipagarrian**. Askoren artean

John Hullek, *Touching the Rock* autobiografia **aipagarrian**, bere buruaz hitz egitean, gartsuki ematen digu aditzera ia erabat "denboran bizi dela" itsua. Xabier Olarra

Mikel Strogoffek eta bi kazetariek trabarik ez zuten izango hain hiri **aipagarrian** ibilgailurik aurkitzeko. Karlos Zabala

Neurri **aipagarrikoa** da, 253 metroko luzeera eta 28 metroko zabalera baitauka eta bere gillatik puntu gorenera 50 metroko altuera baitu. Berria - Mundua

Eta hori da nobelak duen gauzarik **aipagarrienetakoa**. Berria - Kultura

Alde horretatik, daturik **aipagarriena** da Lauaxeta ez zuela, uste zen bezala, Armadak fusilatu, Guardi Zibilak baizik. Berria - Harian

Artista nafarrak 30 urtean egin dituen eskultura sailik **aipagarrienak** bildu ditu BBK fundazioak Bilbon, haien artean, altzari eta enbor eskulturak. Berria - Kultura

Aurtengo bozen berezitasun **aipagarriena**, 3500 jendez goitiko herrietan lixta bakoitx gizon bezenbat emazte behar dela sartu, batto goiti-beheiti. Herria

Marie Rogêt izeneko neska gazte baten hilketa izan zen kasu **aipagarrienetako** bat. Koro Navarro

Agorrileko gertakari **aipagarrienetarik** izan da hauxe, Andredena Maria kari, Aita Saindua, nahiz higatua eta ezindua, Lurderat jitea beilari xume bezala. Herria

Jokalaririk **aipagarrienak**: Lealamanua'a (Sam.), Gonzalez, Betsen, Lievremont, Hariñordoki, Yachvili, Traille, Thion, Brusque. Berria - Kirola

Jatorriz serbiarra baina duela hainbat urte Frantzian bizi dena, eta han bere espresio musikala landu duena, egun jazz frantsesaren osgarri **aipagarria** bihurtu arte. Berria - Kultura

Honako hauek dira, bestalde, inguru-testuaren homogeneitate maila erabakitzen duten alderdirik **aipagarrienak**: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gaur egungo arazo politiko **aipagarrienak** zein diren adierazten saiatuko gara. Askoren artean

Antolaketa egokia, eguraldi ezin hobea eta jendearen erantzun **aipagarria** (400 ikusle). Berria - Kirola

Hor ere, badira kontraesan **aipagarri** batzuk: 1971 arte, esaterako, andre suitzarrek ezin zuten botorik eman hauteskundeetan. Pello Salaburu

Emakumeek lan **aipagarria** egiten dute ingurumenaren antolaketan eta garapenean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Dena den -eta hara hemen ñabarduraz jositako ikuspegiaren lekuko **aipagarria**-, interesen eragina ere azpimarratzen du Keynesek: [... Iñaki Heras

Logikaren ikuspegitik, greziar alfabetoa bereziki **aipagarria** da, 68. orrialdean ikusiko dugun bezala. Isabel Arrigain

Oraino argitara gabeko den *Polit*-en idatzien bilduma guziz **aipagarria** da, J.M. Satrustegi-ren arabera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Badira zenbait bertute ospetsu eta **aipagarri**, gizakiarengan Jainkoari bizilekua prestatzen diotenak. Askoren artean

Ez dakigu zergatik halako talde jakin baten kide izatea meritu **aipagarriagoa** den, eta eskubide gehiagoren jabe egiten zaituen horrek, herriko hizkuntza jakiteak baino. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Liburu asko, baina ezer **aipagarririk** ez. Fernando Morillo

Aipagarriena, 1997 azaroan Retegi eta Tintin pilotariek jokaturiko lau t'erdiko finala. Berria - Kultura

Jones, McBryde eta Finau ditu jokalari **aipagarri**. Berria - Kirola

2 (izan aditzarekin)

Aipagarri dira, besteak beste, Noam Chomsky, Samir Amin, James Petras, Ricardo Petrella, Ignacio Ramonet edota Joaquín Estefaníaren lanak. Iñaki Heras

Mendearen hirugarren laurdena bukatze bidean dago dagoeneko, nahiz urte horietan oraingoz **aipagarri** diren hainbeste eta hainbeste gertakizun konta daitezkeen. Pello Salaburu

Neurriari buruzko atal hau amaitzeko, **aipagarria** da egungo plazaz plazako jardunean bertsoen ehuneko laurogeita hamarra, hasieran azaldu ditugun lau egituretan egiten dela. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Auzi honi buruz **aipagarria** da halaber hainbat gaitzespen eta eraso jaso dituzten aldi baterako lan enpresen sorkuntza (gaztelerazko ETT laburduraz ezagunak direnak). Iñaki Heras

Bada analisi honen funtsezko izaera erakusten duen beste zantzu garrantzitsu bat, **aipagarria** dena. Itziar Laka

Feuerbachen kasua da **aipagarriena**. Askoren artean

Agorrileko gertakari **aipagarrienetarik** izan da hauxe, Andredena Maria kari,Aita Saindua, nahiz higatua eta ezindua, Lurderat jitea beilari xume bezala. Herria

Eskertzekoa da hori, baina, pentsatzen hasita, tesia ondo idatzita egoteak ez luke agian **aipagarri** izan behar. Joxerra Garzia

Teatro mailan **aipagarria** zait Galizako teatroaren aldizkarian argitara eman zuen *Os doces anos da guerra* hura. Berria - Kultura

· **Aipagarria** Mozgovayaren lana. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aipagarri bat (14); **aipagarri bat ere** (4); **aipagarri batzu** (4); **aipagarri batzuk** (4); **aipagarri da** (3); **aipagarri dira** (9); **aipagarri egin** (3); **aipagarri ere** (4); **aipagarri eta** (3); **aipagarri horren** (3); **aipagarria da** (110); **aipagarria den** (5); **aipagarria du** (3); **aipagarria egin** (8); **aipagarria egin zuen** (4); **aipagarria egin zuten** (4); **aipagarria izan** (27); **aipagarria izan da** (3); **aipagarria izan zen** (20); **aipagarriak dira** (25); **aipagarriak egin** (3); **aipagarriak izan** (5); **aipagarriak izan ziren** (5); **aipagarriena da** (5); **aipagarriena izan** (4); **aipagarrienetako bat** (4); **aipagarrienetakoa da** (4); **aipagarririk gertatu** (3); **artean aipagarria** (4); **artean aipagarria da** (4); **artean aipagarriak** (3); **artean aipagarriak dira** (3); **artean aipagarriena** (7); **baina aipagarria** (3); **bereziki aipagarria** (3); **da aipagarri** (5); **da aipagarria** (5); **da aipagarriena** (12); **datu aipagarri** (3); **datu aipagarri bat** (3); **dira aipagarri** (7); **dira aipagarriak** (3); **dira aipagarrienak** (8); **emaitza aipagarririk** (3); **ere aipagarria** (8); **ere aipagarria da** (4); **eta aipagarria** (8); **eta aipagarria da** (6); **ezer aipagarririk** (4); **gauza aipagarri** (5); **gertakari aipagarriena** (3); **guziz aipagarria** (3); **guztiz aipagarria** (3); **hitzordu aipagarri** (5); **jokalari aipagarriak** (12); **jokalaririk aipagarriena** (3); **jokalaririk aipagarrienak** (8); **kasua aipagarria** (3); **lan aipagarria** (5); **lan aipagarria egin** (3); **urteburu aipagarri** (3)

---

aipagarriki *adlag* era aipagarrian.

Halere, berehala argituko da kantitatearen eta kualitatearen kategorien araberako (bi hauen forma besterik ez badugu kontsideratzen) ebidentziari zein agerpenen apriorizko determinazioari dagokienez hauen oinarri-esakuneak beste bienetatik **aipagarriki** bereizten direla, guztiak osotara ziurtasun osoaren gai badira ere. Ibon Uribarri

Hau izadiaren ikertzaileen pentsamolde oso ezberdinetan ere adierazten da, hauen artean batzuek (**aipagarriki** espekulatiboak direnek), homogeneotasunaren etsaiek, nolabait esateko. Ibon Uribarri

Homogeneotasunaren etsaiek, nolabait esateko, beti generoaren batasuna begiztatzen badute ere, besteek (**aipagarriki buru** enpirikoek) izadia etengabe hain anizkuntasun handian banatzea saiatzen dute, non bere agerpenak printzipio orokorren arabera juzgatzeko itxaropena ia utzi beharko bailitzateke. Ibon Uribarri

---

aipagarritasun *iz* aipagarria denaren nolakotasuna.

Orotan kaseta eta irrati-telebixta gehienetarik haste, seinalatu eta goretsi dute kargu horren luzetasuna baino gehiago, eliza-gizon harrigarri baten **aipagarritasuna**: ezin ukatua daukate gehienek horren indarra, bertutea, pisua, bere hatza eta marka eman diolarik gure denborari, gertakari arraroen batzu ikusi izan diren egunetan hain zuzen. Herria

---

aipagei ik **aipagai**.

---

aipaldi **1** *iz*

Hondarribiko aireportuak ere hartzen du **aipaldi**. Herria

Kantonamenduka egiten direnek badute gure herrietan aise **aipaldi** gehiago. Herria

Antzeko eskaerarik egongo denik ez duela uste gaineratu bazuen ere Bremerrek, lehen aldia da AEBetako arduradun batek horrelako gertakizun baten **aipaldia** egitea. Berria - Mundua

Beraz ez hutsegin, Piarres Charriton-en **aipaldia**, Hazparneko mediatekan, ekainaren 18-an. Herria

2 ***aipaldi ukan*** *(orobat* ***izan****)*

Maddi emazteak ere merezi zuen **aipaldia ukan** du. Herria

Charles de Foucauldapezak badu **aipaldi** bulta huntan. Herria

Bi astez, Olinpi-jokoek ukana dute zonbait eta **zonbait aipaldi**! Herria

Sarkozy hunat, **Sarkozy harat**, Sarkozy-k hau errana, Sarkozy-k hau egina, kasik iduri du Frantzia guzia bere bizkarrean duela gizon ttipitto horrek...! Herria

Frantziatik Inglaterrarako eurotunel harek ere badu **beti aipaldi**. Herria

Trein gidarien greba horrek du **aipaldi gehiena** ukan. Herria

Baina baduzu **hainbeste aipaldi** izanik eta hauxe bederen bai, orok dakiguna: hamazazpi urte baditutzula, han nonbait, itzalean pasatuak. Herria

Baina baduzu **hainbeste aipaldi izanik** eta hauxe bederen bai, orok dakiguna: hamazazpi urte baditutzula, han nonbait, itzalean pasatuak. Herria

Badu ja bulta bat **aipaldi** frango ukaiten duela Juan Jose Ibarretxe euskal gobernuko lehendakariak geroari buruz akulatu nahi duen planak. Herria

Europa batuarenxutik ezartzeak hoinbeste **aipaldi** baduelarik eta zernahi gisetarat, lege-nagusiaren auzi horrekin besteak beste (ikus "Egun eta Bihar" saila) bada arrangura bat gero eta gehiago agertzen dena eta gu ere euskaldun gisa hurbiletik hunkitzen gituena: Europa berria behar litakeela untsalaz Europa hortako populu guziena eta ez bakarrik estatuena. Herria

Erretorak egin xuxentze horrek ere ukan zukeen **aipaldi** nahitez! Ixtorio horrek erakusten du ere Zibururi zoin atxikia zen Piarres Haristoy! Herria

Behako bat halere larri-larria **ainitz aipaldi ukan** duten gertakari batzu gogoan... Herria

Bat-batean, berriz ukaiten du ixtorio horrek zernahi **aipaldi**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ainitz aipaldi** (3); **aipaldi gehiago** (3); **aipaldi ukan** (3); **da aipaldi** (3); **du aipaldi** (12); **du oraino aipaldi** (3); **ere aipaldi** (4); **eta zonbait aipaldi** (4); **hoinbeste aipaldi** (3); **oraino aipaldi** (5); **ukaiten du aipaldi** (5); **ukan du aipaldi** (4); **zernahi aipaldi** (8); **zonbait aipaldi** (6)

---

aipamen 1 *iz* aipatzea. ik **aipu**.

Aipamenen eta aipuen, irudien, metaforen, erritmoen, deskribapenen zaku hondorik gabea da idazle baten obra. Anjel Lertxundi

Bere izenaren **aipamenak** deituta bezala, Paulina azaldu zen leiho batean. Bernardo Atxaga

Adituek diotenez, Hugoren **aipamena** ez da zehatza. Koldo Izagirre

Baserri-aldea zen mintzagai: herri-hustearen nondik-norainokoak, iraganetik gaurdainoko laborantza norabideen **aipamenak**. Herria

Esku ikusezinaren **aipamenak** askorentzat kutsu mistikoa du. Iñaki Heras

Etxekoandrea ikaragarri izutu zen deabruaren **aipamena** entzutean. hortik oilalokaren nire **aipamena**. Jose Morales

Nire ustez, errealismoa baino areago, errealitatearen **aipamena** izan da nire lanetan lehen. Ana Urkiza

Jean Etxepare apur bat ezagutzen duena ez da harritzen jende xehearen **aipamen** hori hemen aurkitzean: Larresoroko irakaspenak hartuak zituzten hango apaizki ala jauntxoek gizarteko barne mailak ongi bereizten ikasia baitzuten. Piarres Xarriton

Animalia honek **aipamen** asko eta era askotakoak izan ditu edozein garai eta herritako literatura, arte eta erlijioan. Xabier Olarra

Ildo horretan, PPren eta PSOEren **aipamena** egin zuen Fullaondok, eta azken egunotan HZ legez kanpo uztearen inguruan esandakoei erantzun zien: "Jazarpenak ez gaitu geldituko", esan zien. Berria - Euskal Herria

Pentsatzekoa da horraino bederen iritsi baldin bazara, liburu horien **aipamena** egiten hasi naizeno, gure hizkuntzaren egoerak kezkatzen zaituela. Pello Salaburu

Zenbait "tresna" konkretuen **aipamena** eginen da halanola: familia -kontratuak, beharrezko baimenak eta babesak, gatasken kudeaketa. Herria

Lehen zatian huts egindako jokaldien **aipamena** ere egin zuen Aguirrek. Berria - Kirola

Aitzinsolas honen hastapenetik san Bernaten **aipamen** hura egin baikenuen. Piarres Xarriton

Irakurtzen ari denaz edo idazten duenaz **aipamenak** egiten dizkit, hau edo hori galdetzen dit. Jokin Urain

Nire hainbat burutazio eta **aipamen** txirikordatu ditut ametsarekin batera, eta ez kontakizunaren haria eteteko dudan joera berritsuarengatik bakarrik: ezinezkoa da amesgaizto batek uzten dizkigun gogo-abaildura zein irudien jatorria elementu oniriko soilekin adieraztea. Anjel Lertxundi

Aipamen hori Voltaireren *Zaïre* antzerki lanetik aterea da. Jon Muñoz

Berarekin zetorren emakumeari buruzko **aipamen** bat egiteko gogoari ezin izan zion eutsi, nonbait. Jon Alonso

Hori ere hitzez hitzezko **aipamena** da. Xabier Kintana

Leioan irakaskide dudan MLk ere merezi du esker oneko **aipamena**, berari zor diot-eta Kazetaritzako meure lehen ikasgaia. Joxerra Garzia

Kristau doktrina-tik hartutako **aipamen** batez hasiko du Italian Pedro Lombardok XII. mendean bere Sententziak, liburu ospetsua. Imanol Unzurrunzaga

Bere maileguak tradizioari buruzko **aipamenekin** justifikatuz. Bernardo Atxaga

Hudson ibaiari buruzko **aipamenak** ere sarri egiten ditu Dos Passosek. Lopez de Arana

Aipamen batzuen iturburua jakinaraztea. Jon Muñoz

Hasieran zentzu guztiz positiboa zuten proposizioak ("konstruktoak dira"), arras beste zentzu batean erabiltzen dira gero -are, autoritate handi baten **aipamen** gisa. Joxe Azurmendi

Baita hizketa haiek zail, serio bihurtzen zirenean ere, nagusiei bakarrik zegozkien **aipamen** eta gaitzespenez beteak. Josu Zabaleta

Ohore ainitz egiten zaizkie balonjokoeri, **aipamenez**, telebixtaz, diruz eta espantuz, eta araberan biziki gutiago pilotari. Herria

Osterantzean hutsunez betetako kontakizun bat osatzen du bertsolariak, eta euskal izate jatorraren zaindari funtzioa sinetsirik, etika, morala eta legeriarekin zerikusia duten **aipamenez** betetzen ditu bertsoak. Pako Aristi

Aipamenezko adierazpenek testualak izan beharko dute: hitzez hitzekoak. Iñigo Aranbarri

Hileta-elizkizunen ondoko ostatuko elkarrizketaren laburpena egin nion, alderdi pertsonal mingarrien **aipamenik** gabe. Aingeru Epaltza

Ingelesaren formaldatzeak utzi aurretik, bada **aipamenik** merezi duen beste arazo bat. Itziar Laka

Egun hartan garbitu egingo ditut lurretik sasijainkoen izenak, ez da aurrerantzean haien **aipamenik** egingo. Elizen arteko biblia

2 (izenondoekin)

Laclosek behin baino gehiagotan egin zuen bere liburuan "La Nouvelle Héloise"ren **aipamen** zuzena. Jon Muñoz

Egia erran, denbora hartan guztian sekula ez nuen hango salerosketa ilunei buruzko **aipamen** zuzenik entzun. Alberto Ladron Arana

Pentsalari marxista batzuen idazlanetan **aipamen** argiak aurkituko ditugu naturak hazkundeari ezar diezazkiokeen mugen inguruan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Horra hor ere, heriotzaren **aipamen** garbia. Patziku Perurena

Ez nion nik sekula amaz **aipamen** bakar bat ere entzun. Itxaro Borda

Marxismoaren "ikuspegi orokorra" ez du gogoko Liburu Zuriak, baina honen arrakasta aparta azaltzeko orduan, Alderdiaren garrantzia luze jasotzen du, Leninen eta Stalinen **aipamen** ugariz hornitua. Joseba Zulaika

Iraganeko gertakizun haien **aipamen** hutsa tabua genuenez, Danelen helmen luzeko itzala zen Adak eta biok eztabaidatzen genuen argibide bakarra. Anjel Lertxundi

Aita hil berria zuen Amurizak, eta seguru asko berari aski izango zitzaion aitaren **aipamen** soil hori, barruan zirrara sentitzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Tratuak ez zuen aurrera egin, eta Skuludisek alde egin zuen, **aipamen** garratzak egin ondoren saltzailearen egoismoaz eta diru-goseaz. Anton Garikano

Horren aurretik, bi **aipamen** eder dakarzki. Patziku Perurena

Nahiago izan dut **aipamen** astunekin ez zamatu aldi berean saioa den saiakera hau. Pello Salaburu

GEtika aplikatuaren esparruan bioetikak **aipamen** berezia merezi du. hiru lagun berriek **aipamen** bereziz gainditu zuten azterketa gisako bat izan zen hura. Askoren

artean

Ez zaio balentriarik ezagutzen, gure irudimenaren mapan ez dago haren ibileren zantzurik: bi hiztegietako **aipamen** laburrak ekarri du guganaino. Anjel Lertxundi

Beste **aipamen** luzerik egin gabe, Urepeldarra izanez, ezin dezaket gure artzain Ddamattit BASCANS baztertu. Herria

Sartreren testua **aipamen** kultural anitzez horniturik dago, batzuetan irakurleen adostasuna bilatzen dutenak. Monika Etxebarria

Bat-batean gogoratu zen ezen gau batean music-halleko artista haietako batek, Londrestar txiki ile-hori batek, Pollyren **aipamen** lotsagabe bat egin zuela. Irene Aldasoro

Aintzinako idazleek, Aristotelek, Teofrastok, Pliniok eta bestek, maiz egiten omen dute eperraren **aipamen** sinbolikoa. Patziku Perurena

Fedeari eta mendiari buruzko **aipamen** biblikoa ezagutzen ez duenak, plazer gutxi aterako dio Monterrosoren testuari. Bernardo Atxaga

Beste gai batzuk eta **aipamen** bibliografiko ugari eransten ditu. Isabel Arrigain

Hileta egunean egunkarietan atera ziren **aipamen** nekrologikoetan ez zen oharkabean pasatu bere etxeko gelan aurkitutako despedida oharra. Joxean Agirre

Duela bizpahiru komunikatu, esaterako, oharkabean pasatu zen **aipamen** xenofobiko bat. Hasier Etxeberria

Hazi nintzenean konturatu nintzen zeharkako **aipamen** sexualak egiten zizkiola. Joseba Urteaga

Neure onera etorri aurretik, baina, beste bi aurkezleek nire zazpi andregaien **aipamen** burlatia egin zuten. Karlos Linazasoro

Aipamen zeharkako bat ere egin zuen, ironia nabarmenez: errepublikazaleen arteko eztabaida, emakumeari boto eskubidea eman edo ez. Joxerra Garzia

Aarrazaren **aipamen** alegiazko horiek inork aintzat hartu baino lehen. Xabier Mendiguren Elizegi

Monicak badauka, arlo horretan lan egiten duten guztiek bezala, **aipamen** maiestatikoaren ohitura. Jon Alonso

Bigarren idatzaldian Frantziskok bere gaixotasunaz egiten duen **aipamen** generiko samarrak (2-3 tx) eta Lehen Erregela-ko 22. kapituluarekin duen antzekotasunak 1221 inguruan kokatzera eragiten dute. Askoren artean

Perpaus ezberdin bi aipatzen ditu, S1 eta S2, baina S, F motako gramatiketan ez dago honelako **aipamen** bikoitzik biltzeko modurik. Itziar Laka

Dekano jauna eta Errektore jauna ikustera etortzen zitzaizkion aldian behin, poliki-poliki, konparazio burutsu eta zehar **aipamen** kontu handiko askoren bidez, haren gogoan gertatzen ari zen lana laguntzen zuten. Josu Zabaleta

Hasierako orrietako gertaeren **aipamen** ia soiletatik, azkenerako gogoeta sakonagoetara, bizitzako galderarik funtsezkoenetara iristen da geldiro-geldiro. Josu Zabaleta

3 (izenlagunekin)

Globalizazioaren lehen **aipamen** euskarazkoa ere bada hori, bestalde. Joxerra Garzia

Bertsolaritzaren lehen **aipamen** dokumentatuak agertzen direnerako (XVIII. mendearen amaiera aldera), bertsolaritza kontu zaharra bailitzan agertzen da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Nekearenak aparteko **aipamena** merezi du. Berria - Kirola

Jendearekin harremanaren ondorioz, oroitzapen sorta, leiendak ia, utzi zituen herri askotan.1929an urrezko **aipamena** jaso zuen Bartzelonako Nazioarteko Erakusketan. Berria - Kultura

Halako **aipamena** jasotzen zuen AEBak eta haien aliatuak onartarazten saiatu ziren zirriborroak. Berria - Mundua

Eta nola ez, Begori, itzulpena egin bitartean askotan gogoratu ditudalako bere aholkuak eta noizbehinkako **aipamen** hura: "Literatura Unibertsalak duen traba bakarra zera da, tokatuz gero, itzulpena egin egin behar dela". Xabier Paya

Gelditzen dena da probabilitatea, handia gainera, esandakoa berak Lisboako Setioaren Historia, Berria, idatz zezan eginiko iradokizun famatuaren zeharkako **aipamena** izatea. Jon Alonso

Kasu batzuetan, bestalde, barruko albistea gaztelaniaz izan arren, azaleko **aipamenak** euskaraz daude. Berria - Gaiak

Ikusle ikasia edo "gaia ezagutzen duena" gai izango da irakurtzeko prestakuntza gutxiago duen bati ihes egingo dioten zeharbidezko **aipamenak**, aipuak, metaforak harrapatzeko. Josu Zabaleta

Hala ere, diploma eta ohorezko **aipamenak** gorabehera, oso zaila gertatu zitzaion Estatuaren bulegoren batean lana lortzea. Jose Morales

Kausa horregatik galdu ziren gure nazioan funtsezko oinarri garrantzitsu horiek, eta horietatik jadanik **aipamen** eta aieru arin batzuk besterik ez dituzu aurkituko Talmudean eta Midr--ôt-etan, garau bakanak, azal ugariz inguratuak. Xabier Kintana

Egunerokotasunaren **aipamen** kontu-hartzaileak ("ez zuen bere burua zaintzen"), emaztea izan zitekeela adierazten bazidan ere, ezusteari konponbide berehalako bat eman nahi hotzak maitalea izan zitekeela esaten zidan. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Igarkizunak asmatzen, ilunpetan soinketa egiten, ingelesez edo frantsesez hitz egiten, liburu **aipamenak** egiten, baina luzera aspertu egiten zaitu horrek guztiak. Josu Zabaleta

Bibli **aipamenari** "Vulg" laburdura eransten zaionean, [...]. Askoren artean

Apetitu Apostoluen egintzak, Tesalonikarrei egindako epistolaren zehar- **aipamena**. Xabier Olarra

Promes bat betetzeari buruzko zehar- **aipamen** lauso eta misteriotsua. Jon Alonso

5 ***aipamen historiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **52** agerraldi)*

Aipamen historikoa iraganeko testu bati erreferentzia egiten dion aipua izendatzeko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

Errepresentazioaren hegemonia absolutua, non sekretu eta joko interpretatiboak aurki daitezkeen, profezia bilakatzen diren **aipamen historiko** eta iragarpenekin batera, urre eta gorri bizi koloreak nagusi. ETC-literatura, saiakera

Erlijioan berpizkundeak duen zentzua eta diktadura batetik irten berria zen herriarena alderatuz ekin zion **aipamen historikoz** josítako hitzaldiari. ETC-prentsa

Ermitak berak zein hango Amabirjinak lotura handia dute itsasoarekin, **aipamen historikoen** arabera inguruko basoetako zura itsasontziak eraikitzeko ustiatzen zelako. ETC-prentsa

Abiapuntua, orduan, doinua baino gutxiago izan zen: noizbait dantzari batzuei ordaindu izanaren **aipamen historikoa** baino ez. ETC-prentsa

Eta emanaldia egingo duten elizari buruzko **aipamen historiko** eta artistiko labur bat ere entzunen dute bisitariek. ETC-prentsa

Badirudi Toscanan duela jatorria, eta, tradizioaren arabera, zibilizazio etruskotik omen dator, baina **aipamen historikoak** ez dira agertzen XVIII. mende hasiera arte. ETC-prentsa

Euskal gizarteak salatu zituen frankismoaren garaiko injustiziak, zilegi bekigu **aipamen historikoa**, besteak beste eta zehazki euskararen erabilpenari eta garapenari zegokiona. ETC-prentsa

Aipamen historiko horrek, laburra den arren, balio digu izaera didaktikoa duten zenbait hausnarketa oinarritzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrela, datozen lerroetako **aipamen historikoak** ia bete-betean alda daitezke gure egunetara. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, kapitulu bakoitzak interesgarriak diren **aipamen historikoak** eta erreferentziak jasotzen dituen bibliografia-oharrei buruzko atala ere badu. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***bikaintasun aipamen*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

-Bikaintasun aipamena duten 32 doktorego programa eta ANECAren aldeko txostena duten beste 7. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 ***ohorezko aipamen***

Tomek **ohorezko** aipamenekin eskuratu berria zuen lizentziatu-titulua Cornell-go unibertsitatean. Oskar Arana

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren **Ohorezko Aipamena** Pello Zabala jaunarentzat da. Pello Zabala

Ohorezko Aipamenari dagokionez, aurtengo sarituaren merezimenduak hauek dira: [...]. Pello Zabala

14-eko gerla egin zuen burutik buru, gradoz beti goiti joanez eta zortzi **ohorezko aipamen** ardietsiz. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aipamen asko (6); **aipamen bakar** (4); **aipamen bakar bat** (4); **aipamen bakarra** (7); **aipamen bat** (15); **aipamen batzuk** (7); **aipamen berezi** (24); **aipamen berezi bat** (14); **aipamen berezi batekin** (3); **aipamen berezia** (74); **aipamen berezia egin** (17); **aipamen berezia izan** (3); **aipamen berezia jaso** (6); **aipamen berezia merezi** (23); **aipamen bereziak** (3); **aipamen eder** (3); **aipamen egin** (3); **aipamen eginez** (10); **aipamen egiten** (8); **aipamen egiten dizkioten** (3); **aipamen eta** (10); **aipamen guztiak** (3); **aipamen hau** (7); **aipamen hori** (9); **aipamen horiek** (5); **aipamen horrek** (6); **aipamen hura** (4); **aipamen hutsa** (4); **aipamen hutsak** (5); **aipamen labur** (5);

aipamen labur bat (4); **aipamen txiki** (3); **aipamen txiki bat** (3); **aipamen ugari** (8); **aipamen zuzenik** (3); **artean aipamen** (3); **artean aipamen berezia** (3); **badu aipamen** (7); **beste aipamen** (4); **bi aipamen** (6); **buruzko aipamen** (20); **du aipamen** (3); **dut aipamen** (3); **epaimahaiaren aipamen** (3); **epaimahaiaren aipamen berezia** (3); **ere aipamen** (7); **eta aipamen** (14); **eta aipamen berezia** (3); **gaineko aipamen** (4); **hainbat aipamen** (4); **haren aipamen** (3); **hunen aipamen** (3); **lehen aipamen** (3); **multimedia softwarean aipamen** (3); **ohorezko aipamen** (3); **ren aipamen** (3); **sari eta aipamen** (3); **sarian aipamen** (3); **sarian aipamen berezia** (3); **softwarean aipamen** (3); **softwarean aipamen berezia** (3); **zehar aipamen** (3); **zeharkako aipamen** (3); **zenbait aipamen** (4); **zuen aipamen** (3)

aipamena da (4); **aipamena egin** (24); **aipamena egin du** (4); **aipamena egin zuen** (5); **aipamena egina** (4); **aipamena eginen** (4); **aipamena eginez** (6); **aipamena egitea** (10); **aipamena egiten** (18); **aipamena egiten zuten** (3); **aipamena ere** (8); **aipamena ere egin** (3); **aipamena eta** (9); **aipamena ez** (4); **aipamena ez da** (3); **aipamena izan** (4); **aipamena jaso** (4); **aipamena merezi** (5); **aipamena merezi du** (4); **aipamenak egin** (3); **aipamenak egiten** (4); **aipamenak ere** (7); **aipamenak eta** (5); **aipamenen bat** (7); **aipamenik egin** (31); **aipamenik egin ez** (3); **aipamenik egin gabe** (7); **aipamenik egin nahi** (4); **aipamenik egiten** (12); **aipamenik ere** (8); **aipamenik ere ez** (3); **aipamenik ez** (29); **aipamenik ez du** (3); **aipamenik gabe** (5); **aipamenik merezi** (3); **baten aipamena** (12); **batzuen aipamena** (6); **batzuen aipamena egiten** (3); **buruzko aipamena** (16); **buruzko aipamenak** (24); **buruzko aipamenak ere** (4); **buruzko aipamenik** (17); **buruzko aipamenik egin** (4); **buruzko aipamenik ez** (7); **dio aipamena** (7); **du aipamenik** (6); **duen aipamena** (3); **egindako aipamena** (3); **egindako aipamenak** (3); **egiten dio aipamena** (5); **ere aipamena** (3); **etengabeko aipamenak** (4); **ez zuen aipamenik** (4); **haren aipamena** (5); **haren aipamenik** (3); **horien aipamena** (4); **horren aipamena** (5); **idazluma aipamena** (3); **inguruko aipamenak** (3); **inguruko aipamenik** (3); **inolako aipamenik** (4); **lehen aipamena** (6); **merezi du aipamenik** (4); **ohorezko aipamena** (12); **ohorezko aipamenak** (4); **sare batzuen aipamena** (3); **zehar aipamena** (8); **zeharkako aipamena** (5); **zuen aipamenik** (4); **zuen aipamenik egin** (4)

---

aipamendu *iz* aipamena.

Portugalen abortuaz dute herri hortan ainitz **aipamendu** duen gai premiatsu bat. Herria

---

aipamentxo *iz adkor* aipamen xumea.

Jende fina eta prestua dituk, nahikoa diat hitz bat esatea, **aipamentxo** bat egitea, eta eskuratuko diat dirua. Anton Garikano

EHZ-n bizi daitekeen giroa du bereziki oinarri liburuak, egunerokoan langile gisa zein festazale bezala, historiaz **aipamentxo** bat egiteaz gain. Berria - Harian

---

aiparazi, aiparaz(i), aiparazten du *ad* aipatzera behartu.

Jesusen Pasionearen zinemaldi batek, hainbertze **aiparazi** duelarik mundu argituaren parte haundi bat, bazterrak harrotzen ditu Salbamenduaren auzi bat arrapiztuz berriz ere, maiz gertatu izan den bezala. Herria

---

aipatu, aipa(tu), aipatzen **1** zerbait edo norbait ahotan hartu. ik **aitatu**.

Aitak artean **aipatu** gabe zeukan bonbillen afera. Fernando Rey

Eta Hemingwayren ipuin bat **aipatzen** zen idazkera honen eredutzat. Pako Aristi

Eta aholkuak **aipatu** dituanez, Pelennorko harresia konpontzen denbora gehiegi eman duzuela esango diat. Agustin Otsoa

Bere erro literarioetatik **aipatu** beharrekoa da Svejk soldadu ospetsuak munduaz adierazten duen ikuspuntua, Jaroslav Hažsek txekiarrak zabaldua. Fernando Rey

Azken aldian hain maiz **aipatu** operazio handia behar du honek. Xabier Montoia

Berriz ere konturatzen zara gure hizkuntza **aipatzen** den baino guttiago erabiltzen dela. Ramuntxo Etxeberri

Daniel Landarten kontagintzan hirugarren urratsa dugu hau (**aipatu** gabe uzten ditut teatro-lan ugariak). Daniel Landart

Eta **aipatzekotan** , kasu bakarra **aipatzen** dute guztiek: Gelatxo zaharra, Manuel. Iñigo Aranbarri

Bere lanbidearen ezaugarri bat da hori, eta ez dio Sorayari horren inguruan ezer **aipatzen** . Oskar Arana

Hasieran, izendatzeak berak ere ikara ematen zion; izena ez **aipatzeak** izana galaraziko balio bezala. Imanol Zurutuza

Ez da harritzekoa, beraz, amak nire alboan eserita petrikilo hitza **aipatu** zuelarik, nire garezurrean berriro krak hura berpiztea, argi ororen zapia tarratatuz, bizia etenez. Juan Kruz Igerabide

Inoiz ez al zian berak ezer **aipatu** horretaz? Juan Garzia

Ez zuen erantzunik eskatzen, ez galdera zehatzik planteatzen, soilik bere bizimoduaren zertzelada batzuk **aipatzen** zizkion. Pedro Alberdi

Orain, ordea, egiten zuen beroagatik, ez zidan ezer erantzun Brezok etxean ez zegoela egoterik eta jatetxeko aire egokitua **aipatu** nionean. Joxemari Iturralde

Bere lan linguistiko ugarietatik, aurren-aurrena **aipatu** beharrekoa da bere hiztegi bikaina, kalmukoaren eta alemanaren artekoa. Anton Garikano

Bederatzi urteko baserri hartako andregaia zen Graxik eguna amaren gonapean pasatu zuen, Nakok **aipatu** esperantzetan hitzak zer deabru erran nahi zuen jakinguraz. Itxaro Borda

Lehengusuarena **aipatzeak** zeharo hunkitu zuen Ane. Unai Iturriaga

Hizkuntzari erreparatzeko beste modu bat dago, eta hemen **aipatuko** ditugun prozedurek argiro erakusten dute. Iñaki Arranz

Harrituta, zeharka begiratu zion Albertok, azken izena **aipatzean** zeozer arraroa sumatuta. Joxemari Urteaga

Lur jota zegoen, bada, barrena hustu beharrean, baina ezin zuen betiko lagunengana jo, ez baitzuen arazoa **aipatu** nahi erabateko frogak eduki arte. Migel Angel Mintegi

Mundua **aipatzen** badu, bere burua ulertzeko ezinbesteko zaiolako **aipatzen** du, gainerakoan ez baitu uste aparteko ezer daukanik esateko. Joxerra Garzia

-Eta, barkatu mozteagatik, **aipatu** duzun azken hizkuntza horretan sekulako arrakasta izan omen du liburuak. Jon Arretxe

Elkarrekin bizitzera joan nahi zuela, egunen batean ezkontzeko aukera ere **aipatu** zuen. Antton Olano

Oharraren arabera, zintetako kontaketa egiazkoa zen, **aipatzen** ziren pertsonen izen gehienak aldatuta egon arren, eta egilea hirurogeita zortzi urteko andre bat zen, Bahian jaioa eta Rio de Janeiron bizi zena. Karlos Zabala

-Hitz hori ez duzu **aipatu** ere egin behar -kargu hartu zidan-. Fernando Rey

Zer aurpegirekin **aipatzen** dituen ikusita, galdetzen diot: Bernardo Atxaga

Baina, izotza **aipatzean** , errepara dezagun urtarrileko minimoen batez bestekoetan. Pello Zabala

Izan ere, **aipatu** aholkularitzak lortu zuen jazoera haren lekukotza zuzena emango zuen pertsona bat AEBetako Kongresuaren aurrean azaltzea. Txema Ramirez de la Piscina

Aipatuenak eta ezagunenak aukeratu ditugu. Jose Antonio Mujika

Senarrak **aipatu** zuen hitzaldian, bere laguntzailerik onena eta ezinbestekoa zela esanez. Lourdes Oñederra

Orduko saio eta ahaleginak **aipatu** behar dira, beraz, ordukoek baldintzatzen baitituzte egungo hauek, urte luzeetan baldintzatu dituzten modu berean. Andres Urrutia

Juan Mari Lekuonak berak, "ahozko euskal literaturaren sailkapena" deitzen dio **aipatu** berri dugun bere sailkapenari. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eta, atzera, Kierkegaard **aipatzen** du: Karlos Linazasoro

Inoiz **aipatu** gabeko paktu tazitoa bide genuen, kalean topo eginez gero gure bizitzaren alderdi ezkutuarekin aurrez aurre geratzeko beldurrez, lazgarria izango zelakoan edo. Xabier Mendiguren Elizegi

Durant jaunak sarritan bere lagunei bozkarioz **aipatu** izan ohi zienez, "pare bat gauza" zekizkien berak. Mirentxu Larrañaga

Kafea **aipatu** zuen, baina mahaia atonduta zeukan bazkari itxurazko bat egiteko. Javi Cillero

-Ezetz? Eta zergatik... zergatik ez duk **aipatu** , zer zakiat ba nik, kanpinen bat edo? Fernando Morillo

Gero hor **aipatzen** ditu Aita Santuaren onespena, Goian Begoa, bere arimaren zuzendaria eta gainerako sendikoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Inork ez dio libururik **aipatu** . Arantxa Iturbe

Matiasek Jenerala **aipatzen** zionean irri-algara ero samarra ateratzen zitzaion, "nora zoaz", "ez dakizu zer esaten ari zaren" edo "esaiozu zuk" esan nahiko balu bezala. Jon Alonso

Barkatu egin zidan, nonbait, laprastada, ez baitzidan luzaroan berriro **aipatu**. Edorta Jimenez

Aipatu bi elkarteak izan ezik, nor zutitu da giza-ehiza honen kontra, nor lurrean kondenatutako langile hauen alde? Iñigo Aranbarri

Itsasoan euria, egurra basoan, egunez ilargia eta gizonezkoen titiak **aipatzen** dira euskal esaera zaharretan alferrikako gauzen adibide eta eredutzat. Joxerra Garzia

Aipaturiko poeta horien ahotsek ez diote besterik. Joseba Zulaika

Lehengoan aingeruak **aipatu** zenituen. Aingeru Epaltza

Nostalgiak harrapatzen duenean eta nire haurtzaroko gauzak ozen gogoratzeari ekiten dionean, ume bakartia nintzela **aipatu** ohi du gure amak. Iban Zaldua

Spinola, italiar faltsua, kristau faltsua, aitortzera ausartzen ez bazen ere judua baitzen odolez, edo hori **aipatzen** zuten Portugaldarren Sinagogako ofizioetan, judua juduarentzat beti otso izan dela baieztatzeaz gainera. Felipe Juaristi

Barne bidaiarena **aipatu** nionean travelling bat egin behar zuela otu zitzaion zuzendariari; nire sukaldeko travelling bat. Pako Aristi

Atalean-atalean **aipatzen** ditudan edizioak neuk erabili ditudanak dira. Pablo Sastre

-Askotan **aipatzen** dizkiot zuri bururatzen zaizkizun gauzak, eta bere begiz ikusi nahi izan du. Juan Martin Elexpuru

Jakina, ulertzekoa da jarri zidan aurpegia, anaiak "beste gaixotasun bat" bailiran **aipatuta**. Joxean Sagaztizabal

Nahikoa desatsegin gertatzen zitzaidan kontu hura, zertarako engaina, eta izugarri poztu nintzen Sandrak bere gain har zezakeela **aipatu** zidanean, berari ez zaiola axola. Iban Zaldua

Orain asko **aipatzen** da pluralismoa. Joxe Azurmendi

Egaeus dut bataio izena; abizena ez dut **aipatuko**. Koro Navarro

Atzerriko etsairen bat **aipatu** ote digu? Joanes Urkixo

Biok aurreneko aldiz atera ginenean ere **aipatu** zidan kontu hori. Bernardo Atxaga

Aski bedi adibide batzuk **aipatzea**, gutxi, baina, hori bai, muntadunak. Joan Mari Lekuona

2 *gaizki aipatu*

-Hauxe idatz-molde nahasia! Agian ez du Marcel horrek gure Illiers **gaizki aipatuko**.. Berria - Kultura

Anitz gizon ari baita andrez **gaizki aipatzen**, artizki eta desoneski baitituzte aipatzen. Aurelia Arkotxa

3 *ongi aipatu*

Heien artean badire idazle alderdia izaki eta beren irudimen aberatsari esker, Euskal Herria **ongi aipatuz**, elaberri laudoriotsu zenbait dituzte zabaltzen. Herria

Atsegin bat guretzat, Ouest France bezalako egunkari batzuek gertakaria **ongi aipatu** dutela, ez baita guti! Herria

Eta Jainkoari bezala, berdin gure ahaide eta laguneri Euskaraz abiatu gare mintzatzen; halako moldez non barneko gure bozkario eta bihotzminak, ez baititugu sekulan hain **ongi aipatzen** eta kanpora agertzen nola haur denborako euskara gozo eta aberats horren bidez. Xipri Arbelbide

4 *otsoa aipatu*

Haur guztiak, batik bat txikiak, eserlekuetan uzkurtzen dira, nire hitzek **otsoa aipatu** izan balute bezala; hantxe dago otsoa, atearen beste aldean, benetan, eta amak ez dio ixten sarbidea, hanka erakuts diezaiola eskatzeko. Juan Kruz Igerabide

Baina "**otsoa aipatu** eta hara non ate joka" esan ohi den bezala, handik bi astera Zumalakarregi Garesera hurbildu zen. Martin Anso

5 *otsoa non aipa*

Otsoa non aipa... Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adibide aipatu (6); **adibidea aipatu** (6); **ainitz aipatu** (15); **ainitz aipatu da** (6); **aipatu ahal** (11); **aipatu al** (7); **aipatu arren** (12); **aipatu baino** (8); **aipatu baitzuen** (8); **aipatu barik** (9); **aipatu behar** (158); **aipatu behar da** (38); **aipatu behar dira** (23); **aipatu behar ditugu** (8); **aipatu behar dugu** (14); **aipatu behar dut** (6); **aipatu beharko** (41); **aipatu beharra** (27); **aipatu beharra dago** (17); **aipatu beharrean** (9); **aipatu beharreko** (13); **aipatu beharrekoa** (16); **aipatu beharrekoa da** (6); **aipatu beharrik** (15); **aipatu berri** (54); **aipatu berri ditugun** (7); **aipatu berri dudan** (9); **aipatu berri dugun** (11); **aipatu besterik** (6); **aipatu besterik ez** (6); **aipatu bezain** (8); **aipatu bezala** (77); **aipatu bi** (45); **aipatu da** (96); **aipatu da ere** (8); **aipatu dauku** (6); **aipatu den** (49); **aipatu dena** (7); **aipatu denez** (8); **aipatu dio** (6); **aipatu diot** (9); **aipatu dira** (41); **aipatu diren** (43); **aipatu dit** (8); **aipatu ditu** (135); **aipatu ditudan** (44); **aipatu dituen** (9); **aipatu ditugu** (35); **aipatu ditugun** (83); **aipatu ditut** (23); **aipatu dituzte** (51); **aipatu dituzu** (26); **aipatu dituzun** (24); **aipatu dizkizudan** (10); **aipatu dizudan** (11); **aipatu dizuedan** (6); **aipatu dizut** (11); **aipatu du** (285); **aipatu du ere** (8); **aipatu dudala** (6); **aipatu dudan** (71); **aipatu dudan bezala** (8); **aipatu dudana** (6); **aipatu dudanez** (13); **aipatu duela** (6); **aipatu duen** (18); **aipatu duenez** (14); **aipatu dugu** (54); **aipatu dugun** (131); **aipatu dugun bezala** (15); **aipatu duguna** (6); **aipatu dugunez** (10); **aipatu dut** (76); **aipatu dut lehen** (6); **aipatu dute** (108); **aipatu duten** (6); **aipatu duzu** (78); **aipatu duzue** (12); **aipatu duzun** (26); **aipatu edo** (6); **aipatu ere** (181); **aipatu ere egin** (52); **aipatu ere egiten** (29); **aipatu ere ez** (45); **aipatu eta** (79); **aipatu eta gero** (8); **aipatu ez** (95); **aipatu ez bazuen** (9); **aipatu ez izana** (6); **aipatu ezin** (6); **aipatu gabe** (201); **aipatu gabe utzi** (29); **aipatu gabe uzten** (7); **aipatu gabeko** (7); **aipatu genuen** (11); **aipatu ginuen** (13); **aipatu hiru** (11); **aipatu horiek** (9); **aipatu izan** (103); **aipatu izan da** (22); **aipatu izan den** (8); **aipatu izan dute** (7); **aipatu izana** (16); **aipatu izanak** (9); **aipatu nahi** (91); **aipatu nahi ditut** (8); **aipatu nahi ez** (6); **aipatu nahi izan** (12); **aipatu nahi nuke** (7); **aipatu nion** (24); **aipatu nionean** (10); **aipatu nituen** (7); **aipatu nizkion** (10); **aipatu nizun** (11); **aipatu nuen** (26); **aipatu ohi** (42); **aipatu ohi da** (12); **aipatu ondoan** (8); **aipatu ondoren** (13); **aipatu orduko** (16); **aipatu ote** (6); **aipatu zen** (49); **aipatu zenuen** (12); **aipatu zidan** (56); **aipatu zidaten** (6); **aipatu zien** (7); **aipatu zigun** (13); **aipatu zion** (58); **aipatu zionean** (7); **aipatu zioten** (6); **aipatu ziren** (14); **aipatu zituen** (379); **aipatu zituen atzo** (7); **aipatu zituenean** (7); **aipatu zituzten** (53); **aipatu zizkidan** (9); **aipatu zizkion** (20); **aipatu zuela** (6); **aipatu zuen** (981); **aipatu zuen aralarreko** (6); **aipatu zuen atzo** (16); **aipatu zuen barrenak** (7); **aipatu zuen eta** (22); **aipatu zuen zabaletak** (7); **aipatu zuena** (6); **aipatu zuenean** (18); **aipatu zuenez** (29); **aipatu zuten** (108)

aitzinean aipatu (6); **aldiz aipatu** (14); **arazoak aipatu** (13); **arestian aipatu** (75); **arestian aipatu dudan** (10); **arestian aipatu dugun** (10); **arte aipatu** (17); **artean aipatu** (20); **asko aipatu** (22); **askotan aipatu** (22); **askotan aipatu izan** (8); **astean aipatu** (32); **astean aipatu bezala** (10); **atzo aipatu** (10); **aukera aipatu** (35); **aukera aipatu du** (6); **aukera aipatu zuen** (16); **aukera ere aipatu** (8); **aurretik aipatu** (11); **auzapezak aipatu** (12); **auzapezak aipatu ditu** (6); **auzia aipatu** (10); **baina aipatu** (15); **baino gehiagotan aipatu** (26); **baizik aipatu** (6); **bakarrik aipatu** (7); **bat aipatu** (84); **bat aipatu behar** (9); **bat aipatu du** (8); **bat aipatu zidan** (7); **bat aipatu zuen** (20); **bat ere aipatu** (15); **batean aipatu** (13); **batek aipatu** (14); **batere aipatu** (7); **batzu aipatu** (7); **batzuk aipatu** (23); **batzuk ere aipatu** (7); **behar dela aipatu** (7); **behar direla aipatu** (6); **behar duela aipatu** (6); **beharra aipatu** (40); **beharra aipatu du** (8); **beharra aipatu zuen** (16); **beharra ere aipatu** (6); **beharrezkoa dela aipatu** (7); **beherak aipatu** (10); **behin aipatu** (8); **behin ere aipatu** (10); **beldurra aipatu** (7); **bera aipatu** (12); **berak aipatu** (16); **berean aipatu** (9); **bereziki aipatu** (12); **berriro aipatu** (12); **berriz aipatu** (17); **berriz ere aipatu** (9); **bi aipatu** (6); **da aipatu** (42); **da aipatu ere** (6); **dagoela aipatu** (16); **dagoela aipatu zuen** (13); **dagoeneko aipatu** (10); **daitekeela aipatu** (7); **daudela aipatu** (6); **deia aipatu** (6); **dela aipatu** (132); **dela aipatu du** (9); **dela aipatu zuen** (94); **den aipatu** (7); **den astean aipatu** (7); **deus aipatu** (14); **dira aipatu** (21); **direla aipatu** (46); **direla aipatu zuen** (32); **ditu aipatu** (16); **dituela aipatu** (15); **dituela aipatu zuen** (11); **ditut aipatu** (8); **dituzte aipatu** (10); **dituztela aipatu** (11); **dituztela aipatu zuen** (7); **du aipatu** (26); **duela aipatu** (60); **duela aipatu du** (8); **duela aipatu zuen** (45); **dugu aipatu** (17); **dut aipatu** (17); **dute aipatu** (15); **dutela aipatu** (45); **dutela aipatu du** (7); **dutela aipatu zuen** (22); **edo aipatu** (8); **egitea aipatu** (6); **egiteko aukera aipatu** (7); **egoera aipatu** (11); **egon aipatu** (6); **ek aipatu** (8); **ekonomikoak aipatu** (9); **ere aipatu** (335); **ere aipatu behar** (18); **ere aipatu beharko** (9); **ere aipatu da** (9); **ere aipatu ditu** (15); **ere aipatu du** (24); **ere aipatu duzu** (7); **ere aipatu ez** (6); **ere aipatu gabe** (6); **ere aipatu izan** (12); **ere aipatu zituen** (33); **ere aipatu zuen** (71); **ere aipatu zuten** (9); **eskubidea aipatu** (9); **eta aipatu** (88); **eta arestian aipatu** (6); **euskara aipatu** (6); **ez aipatu** (33); **ez aipatu izana** (6); **ez da aipatu** (8); **ez dela aipatu** (6); **ez du aipatu** (12); **ez dut aipatu** (9); **ez nion aipatu** (6); **ez zion aipatu** (7); **ez zituen aipatu** (6); **ez zuen aipatu** (31); **ez zuten aipatu** (7); **ezer aipatu** (28); **ezin aipatu** (7); **ezta aipatu** (8); **ezta aipatu ere** (7); **gaia aipatu** (18); **garrantzia aipatu** (16); **garrantzia aipatu zuen** (6); **gehiago aipatu** (17); **gehiagotan aipatu** (27); **gisa aipatu** (13); **goian aipatu** (11); **gora beherak aipatu** (10); **gorago aipatu** (54); **gorago aipatu ditugun** (6); **goraxago aipatu** (8); **guztiak aipatu** (16); **hainbestetan aipatu** (11); **hala aipatu** (6); **halakorik aipatu** (6); **han aipatu** (6); **hark aipatu** (7); **hasieran aipatu** (20); **hau aipatu** (7); **hauek aipatu** (11); **hauek aipatu zituen** (7); **hemen aipatu** (28); **hitza aipatu** (16); **hitzak aipatu** (9); **honako hauek aipatu** (6); **hor aipatu** (6); **hori aipatu** (30); **horiek aipatu** (9); **horrelakorik aipatu** (7); **hura aipatu** (15); **inoiz aipatu** (19); **iragan astean aipatu** (7); **izan aipatu** (9); **izan dela aipatu** (6); **izan zela aipatu** (10); **izana aipatu** (11); **izana aipatu zuen** (7); **izen aipatu** (6); **izena aipatu** (53); **izena ere aipatu** (6); **izenak aipatu** (8); **izenik aipatu** (28); **izenik aipatu gabe** (11); **jada aipatu** (7); **jadanik aipatu** (30); **jadanik aipatu dugun** (9); **jarrera aipatu** (6); **joanden astean aipatu** (13); **k aipatu** (8); **kasua aipatu** (22); **kasua aipatu zuen** (13); **kasuak aipatu** (6); **kontua aipatu** (13); **kontuak aipatu** (15); **lana aipatu** (16); **legea aipatu** (10); **lehen aipatu** (128); **lehen aipatu bezala** (9); **lehen aipatu ditudan** (8); **lehen aipatu ditugun** (12); **lehen aipatu dudan** (15); **lehen aipatu dugun** (26); **lehen ere aipatu** (17); **lehenago aipatu** (29); **lehenago aipatu dugun** (6); **maiz aipatu** (11); **nagusi aipatu** (9); **nagusiak aipatu** (12); **nion aipatu** (6); **nuen aipatu** (8); **orain aipatu** (7); **orain arte aipatu** (15); **oraintxe aipatu** (6); **orduan aipatu** (9); **premia aipatu** (9); **sarri aipatu** (9); **sarritan aipatu** (17); **sekula aipatu** (8); **zehazki aipatu** (6); **zela aipatu** (40); **zela aipatu zuen** (20); **zen aipatu** (17); **zerbait aipatu** (15); **zion aipatu** (10); **zirela aipatu** (10); **zirela aipatu zuen** (8); **ziren aipatu** (6); **zituela aipatu** (6); **zituen aipatu** (9); **zituzten aipatu** (6); **zuela aipatu** (16); **zuela aipatu zuen** (10); **zuen aipatu** (40); **zuk aipatu** (10); **zutela aipatu** (11); **zuten aipatu** (15); **zuzenean aipatu** (12); **zuzenean aipatu gabe** (6)

aipatzea ahaztu (3); **aipatzea aski** (4); **aipatzea bera** (3); **aipatzea da** (5); **aipatzea edo** (3); **aipatzea erabaki** (4); **aipatzea ere** (11); **aipatzea eta** (9); **aipatzea ez** (9); **aipatzea luzeegi** (3); **aipatzea merezi** (9); **aipatzea merezi duen** (3); **aipatzea merezi duena** (3); **aipatzea nahikoa** (4); **aipatzeak berak** (3); **aipatzeak ere** (3); **aipatzean ere** (3); **aipatzearekin batera** (4); **aipatzeaz gain** (11); **aipatzeko aukera** (5); **aipatzeko baizik** (3); **aipatzeko baizik ez** (3); **aipatzeko bakarrik** (3); **aipatzeko balio** (4); **aipatzeko duin** (3); **aipatzeko erabiltzen** (4); **aipatzeko ere** (4); **aipatzeko eskatuta** (3); **aipatzeko eskubidea** (3); **aipatzeko eta** (9); **aipatzeko ez** (3); **aipatzeko moduko** (7); **aipatzeko modukoa** (4); **aipatzeko modukoa da** (3); **aipatzeko da** (92); **aipatzekoa da ere** (4); **aipatzekoa izan** (3); **aipatzekoa izan zen** (3); **aipatzekoak dira** (22); **artean aipatzekoa** (4); **artean aipatzekoa da** (4); **artean aipatzekoak** (3); **artean aipatzekoak dira** (3); **baizik ez aipatzeagatik** (3); **baizik ez aipatzeko** (20); **bat aipatzea** (10); **bat aipatzeagatik** (7); **bat aipatzeko** (18); **bat aipatzeko eskatuta** (3); **bat aipatzekotan** (10); **baten aipatzeko** (3); **batzuk aipatzea** (7); **batzuk aipatzekotan** (3); **beherak aipatzeko** (3); **bereziki aipatzekoa** (4); **bereziki aipatzekoa da** (3); **berriz aipatzeko** (3); **da aipatzea** (3); **da ez aipatzea** (4); **denak hemen aipatzeko** (3); **du aipatzea** (7); **egoera aipatzean** (3); **ere aipatzekoa** (8); **ere aipatzekoa da** (6); **ere ez aipatzeko** (3); **eta aipatzea** (3); **ez aipatzea** (42); **ez aipatzeagatik** (15); **ez aipatzeak** (3); **ez aipatzeko** (46); **gai horren aipatzeko** (4); **gaia aipatzeko** (3); **gauzak aipatzeko** (3); **gora beherak aipatzeko** (3); **hauek aipatzea** (3); **hemen aipatzea** (4); **hemen aipatzeko** (3); **hitza aipatzeko** (3); **hobe ez aipatzea** (3); **hori aipatzea** (4); **hori aipatzean** (6); **horiek aipatzean** (4); **horren aipatzea** (7); **horren aipatzeak** (3); **horren aipatzeko** (6); **hura aipatzean** (4); **inori ez aipatzeko** (3); **izena aipatzea** (8); **izena aipatzean** (3); **izena aipatzeko** (8); **izenak aipatzea** (5); **merezi du aipatzea** (5); **zerbait aipatzea** (3); **zu aipatzeko** (3); **zu aipatzeko duin** (3)

abar aipatzen (4); **adibidea aipatzen** (4); **adibidea aipatzen du** (3); **adibideak aipatzen** (3); **ainitz aipatzen** (7)

aipatzen ahal (21); **aipatzen ahal da** (4); **aipatzen ahalko** (3); **aipatzen ari** (41); **aipatzen ari da** (3); **aipatzen ari dira** (3); **aipatzen ari garen** (7); **aipatzen ari naizen** (6); **aipatzen ausartu** (3); **aipatzen bada** (7); **aipatzen bada ere** (3); **aipatzen badut** (4); **aipatzen baita** (8); **aipatzen baititu** (6); **aipatzen baititugu** (4); **aipatzen baitu** (6); **aipatzen baitugu** (9); **aipatzen baitute** (3); **aipatzen baituzu** (5); **aipatzen baitziren** (3); **aipatzen baitzituen** (3); **aipatzen baldin** (3); **aipatzen bazuen** (5); **aipatzen beren** (3); **aipatzen da** (207); **aipatzen da gure** (3); **aipatzen da orain** (3); **aipatzen dauku** (3); **aipatzen dela** (10); **aipatzen delarik** (13); **aipatzen den** (96); **aipatzen den beste** (3); **aipatzen dena** (15); **aipatzen denean** (17); **aipatzen denez** (7); **aipatzen didazu** (3); **aipatzen digu** (8); **aipatzen dio** (3); **aipatzen dira** (116); **aipatzen direla** (3); **aipatzen direlarik** (3); **aipatzen diren** (69); **aipatzen diren izenen** (4); **aipatzen direnak** (10); **aipatzen direnean** (6); **aipatzen dit** (4); **aipatzen ditu** (202); **aipatzen ditu dokumentuak** (3); **aipatzen ditu egileak** (3); **aipatzen ditu ere** (3); **aipatzen ditu eta** (5); **aipatzen ditu txostenak** (5); **aipatzen ditudan** (6); **aipatzen dituela** (13); **aipatzen dituelarik** (3); **aipatzen dituen** (72); **aipatzen dituen bi** (4); **aipatzen dituena** (3); **aipatzen dituenak** (6); **aipatzen dituenean** (4); **aipatzen ditugu** (10); **aipatzen ditugun** (7); **aipatzen ditut** (8); **aipatzen dituzte** (42); **aipatzen dituzten** (23); **aipatzen dituzu** (9); **aipatzen dituzue** (3); **aipatzen dituzun** (9); **aipatzen dizkio** (4); **aipatzen du** (302); **aipatzen du agiriak** (3); **aipatzen du behin** (4); **aipatzen du ere** (3); **aipatzen du eta** (6); **aipatzen du hemen** (4); **aipatzen du legeak** (5); **aipatzen du nola** (3); **aipatzen du txostenak** (3); **aipatzen dudan** (10); **aipatzen dudanean** (3); **aipatzen duela** (6); **aipatzen duelako** (4); **aipatzen duelarik** (4); **aipatzen duen** (107); **aipatzen duen arren** (3); **aipatzen duen bezala** (3); **aipatzen duen legez** (4); **aipatzen duen lehen** (3); **aipatzen duena** (15); **aipatzen duenaren** (4); **aipatzen duenean** (11); **aipatzen duenez** (5); **aipatzen duenik** (3); **aipatzen dugu** (15); **aipatzen dugularik** (5); **aipatzen dugun** (13); **aipatzen duguna** (7); **aipatzen dugunean** (4); **aipatzen dut** (24); **aipatzen dutan** (3); **aipatzen dute** (101); **aipatzen dutela** (13); **aipatzen dutelarik** (6); **aipatzen duten** (33); **aipatzen dutena** (7); **aipatzen dutenak** (6); **aipatzen dutenean** (5); **aipatzen duzu** (16); **aipatzen duzue** (9); **aipatzen duzularik** (3); **aipatzen duzun** (11); **aipatzen duzunean** (3); **aipatzen edo** (3); **aipatzen entzun** (8); **aipatzen ere** (13); **aipatzen eta** (20); **aipatzen ez** (55); **aipatzen ez den** (4); **aipatzen ez dena** (3); **aipatzen ez diren** (4); **aipatzen ez dituen** (7); **aipatzen ez duen** (5); **aipatzen genituen** (5); **aipatzen genuen** (13); **aipatzen ginauzuen** (11); **aipatzen ginuen** (7); **aipatzen hasi** (28); **aipatzen hasi dira** (5); **aipatzen hasi zen** (5); **aipatzen hasi ziren** (5); **aipatzen hasiak** (3); **aipatzen hasita** (8); **aipatzen hasiz** (4); **aipatzen hasiz gero** (4); **aipatzen huen** (3); **aipatzen jarraitu** (4); **aipatzen jarraitu zuen** (4); **aipatzen nituen** (9); **aipatzen nuen** (19); **aipatzen omen** (8); **aipatzen omen zuen** (3); **aipatzen zela** (5); **aipatzen zen** (39); **aipatzen zenuen** (3); **aipatzen zian** (3); **aipatzen zidan** (7); **aipatzen zion** (3); **aipatzen zioten** (3); **aipatzen ziren** (26); **aipatzen zituela** (7); **aipatzen zituelarik** (3); **aipatzen zituen** (72); **aipatzen zituzten** (20); **aipatzen zizkigun** (3); **aipatzen zizkion** (4); **aipatzen zuela** (14); **aipatzen zuen** (146); **aipatzen zuen beti** (3); **aipatzen zuena** (5); **aipatzen zuenean** (11); **aipatzen zutela** (8); **aipatzen zuten** (48); **aipatzen zuten bakoitzean** (3); **aipatzen zutena** (4); **aipatzen zutenak** (4); **aipatzen zutenean** (3)

aldiz aipatzen (8); **aldiz aipatzen du** (3); **anitz aipatzen** (3); **apenas aipatzen** (8); **arazoak aipatzen** (3); **argiki aipatzen** (3); **arrazoi aipatzen** (5); **arrazoi aipatzen ditu** (3); **artean aipatzen** (3); **artikuluak aipatzen** (4); **artikuluan aipatzen** (8); **asko aipatzen** (16); **asko aipatzen da** (3); **asko aipatzen ditu** (4); **askotan aipatzen** (23); **askotan aipatzen da** (6); **askotan aipatzen den** (3); **astean aipatzen** (6); **astean aipatzen ginauzuen** (4); **atalean aipatzen** (4); **aukera aipatzen** (13); **aukera aipatzen du** (6); **aurretik aipatzen** (3); **autodeterminazio eskubidea aipatzen** (3); **azkarki aipatzen** (3); **baina aipatzen** (6); **baina aipatzen diren** (3); **baino gehiago aipatzen** (4); **baino gehiagotan aipatzen** (5); **baitu aipatzen** (4); **baizik aipatzen** (11); **baizik aipatzen ez** (4); **bakan aipatzen** (3); **bakarra aipatzen** (5); **bakarrik aipatzen** (7); **banaka aipatzen** (4); **bat aipatzen** (74); **bat aipatzen da** (10); **bat aipatzen du** (21); **bat aipatzen dute** (6); **bat aipatzen zen** (3); **bat aipatzen zuen** (8); **bat ere aipatzen** (4); **batasuna aipatzen** (4); **batean aipatzen** (13); **batek aipatzen** (6); **batere aipatzen** (3); **batzuk aipatzen** (23); **batzuk aipatzen ditu** (9); **batzuk ere aipatzen** (5); **behar dela aipatzen** (4); **beharra aipatzen** (12); **beharra aipatzen du** (3); **behin ere aipatzen** (4); **bera aipatzen** (7); **berak aipatzen** (14); **berak aipatzen duen** (4); **berean aipatzen** (6); **berezian aipatzen** (4); **berezian aipatzen ziren** (3); **berria aipatzen** (3); **berriak aipatzen** (3); **berriro aipatzen** (17); **berriz aipatzen** (20); **bertan aipatzen** (8); **beste aipatzen** (6); **beti aipatzen** (21); **bezala aipatzen** (9); **bi aipatzen** (6); **bi aipatzen ditu** (4); **bi izen aipatzen** (3); **da aipatzen** (23); **dela aipatzen** (25); **dela aipatzen da** (7); **dela aipatzen den** (3); **dela aipatzen du** (7); **dena aipatzen** (4); **denak aipatzen** (3); **denek aipatzen** (7); **denek aipatzen dute** (3); **deus aipatzen** (3); **deusik aipatzen** (3); **dira aipatzen** (19); **dira aipatzen diren** (5); **direla aipatzen** (10); **direla aipatzen da** (5); **ditu aipatzen** (12); **ditut aipatzen** (3); **dituztela aipatzen** (4); **du aipatzen** (42); **du inoiz aipatzen** (3); **duela aipatzen** (10); **duela aipatzen da** (3); **duen aipatzen** (3); **dugu aipatzen** (6); **dute aipatzen** (9); **dutela aipatzen** (7)

edo aipatzen (8); **edo beste aipatzen** (4); **egiteko aukera aipatzen** (3); **egoera aipatzen** (5); **egun aipatzen** (3); **egunero aipatzen** (3); **egunkaria aipatzen** (3); **ek aipatzen** (6); **erabiltzea aipatzen** (3); **ere aipatzen** (125); **ere aipatzen ahal** (3); **ere aipatzen da** (13); **ere aipatzen dira** (12); **ere aipatzen ditu** (20); **ere aipatzen dituzte** (4); **ere aipatzen du** (23); **ere aipatzen dute** (6); **ere aipatzen zituen** (5); **eskubidea aipatzen** (5); **eskubideak aipatzen** (9); **eskubideak aipatzen dira** (3); **espreski aipatzen** (4); **espresuki aipatzen** (3); **eta abar aipatzen** (4); **eta aipatzen** (37); **eta aipatzen du** (3); **eta aipatzen dutela** (3); **eta berriro aipatzen** (15); **eta berriz aipatzen** (13); **eta garbi aipatzen** (4); **eta orain aipatzen** (3); **etengabe aipatzen** (7); **euskal herria aipatzen** (3); **ez baitu aipatzen** (4); **ez da aipatzen** (20); **ez dela aipatzen** (4); **ez dira aipatzen** (9); **ez ditu aipatzen** (11); **ez ditut aipatzen** (3); **ez du aipatzen** (37); **ez duen aipatzen** (3); **ez dugu aipatzen** (5); **ez dute aipatzen** (8); **ez zen aipatzen** (8); **ez ziren aipatzen** (4); **ez zuen aipatzen** (10); **eza aipatzen** (5); **ezer aipatzen** (9); **falta aipatzen** (3); **gabe aipatzen** (5); **gaia aipatzen** (6); **garbi aipatzen** (4); **garrantzia aipatzen** (4); **gehiago aipatzen** (12); **gehiago aipatzen dira** (3); **gehiagotan aipatzen** (8); **gehien aipatzen** (9); **gehien aipatzen dena** (3); **gehienik aipatzen** (3); **gisa aipatzen** (10); **gorabeherak aipatzen** (4); **gorago aipatzen** (5); **gutxi aipatzen** (7); **gutxitan aipatzen** (10); **gutxitan aipatzen den** (3); **guztiek aipatzen** (5); **guztiek aipatzen dute** (3); **guztietan aipatzen** (5); **guztietan aipatzen da** (3); **haiek aipatzen** (6); **hain sarri aipatzen** (3); **hainbat arrazoi aipatzen** (3); **hainbatetan aipatzen** (5); **hainbeste aipatzen** (8); **hainbestetan aipatzen** (7); **hala aipatzen** (3); **halakorik aipatzen** (3); **han aipatzen** (3); **handia aipatzen** (4); **haren izena aipatzen** (3); **hartan aipatzen** (3); **hau aipatzen** (9); **hau aipatzen du** (5); **hauek aipatzen** (3); **hemen aipatzen** (23); **hemen aipatzen den** (4); **hemen aipatzen dugun** (4); **herria aipatzen** (5); **hiru aipatzen** (3); **hitza aipatzen** (11); **hitza aipatzen du** (3); **hitzarmen berezian aipatzen** (3); **hitzez aipatzen** (3); **hobekuntzak aipatzen** (3); **honek aipatzen** (3); **honetan aipatzen** (7); **hor aipatzen** (10); **hor aipatzen ditu** (3); **hori aipatzen** (24); **horiek aipatzen** (5); **horietan aipatzen** (3); **horregatik aipatzen** (4); **horrelakorik aipatzen** (5); **horretan aipatzen** (5); **hura aipatzen** (4)

idazleak aipatzen (3); **inoiz aipatzen** (4); **inon aipatzen** (8); **izana aipatzen** (3); **izen aipatzen** (5); **izen aipatzen dira** (3); **izena aipatzen** (20); **izena aipatzen zen** (3); **izena aipatzen zuenean** (3); **izena ere aipatzen** (3); **izenak aipatzen** (11); **izenak ere aipatzen** (3); **izenaz aipatzen** (3); **izenik aipatzen** (3); **jatorria aipatzen** (3); **joanden astean aipatzen** (3); **k aipatzen** (9); **k aipatzen duen** (4); **kasua aipatzen** (5); **kasuak aipatzen** (5); **konpromisoa aipatzen** (3); **konpromisoa aipatzen du** (3); **kontua aipatzen** (6); **kontuak aipatzen** (11); **lana aipatzen** (5); **lanak aipatzen** (4); **legeak aipatzen** (4); **legean aipatzen** (3); **lehen aipatzen** (4); **liburuak aipatzen** (4); **liburuan aipatzen** (13); **liburuan aipatzen den** (3); **liburuan aipatzen du** (3); **maiz aipatzen** (24); **maiz aipatzen da** (3); **moduan aipatzen** (3); **musika aipatzen** (3); **n aipatzen** (3); **nagusi aipatzen** (4); **nagusi aipatzen ditu** (3); **nik aipatzen** (5); **nobelan aipatzen** (3); **nobelan aipatzen den** (3); **nola aipatzen** (3); **non aipatzen** (4); **norbait aipatzen** (3); **nork aipatzen** (8); **nork aipatzen du** (5); **onak aipatzen** (5); **ondoren aipatzen** (6); **ondoren aipatzen diren** (4); **orain aipatzen** (9); **orduan aipatzen** (3); **oso gutxi aipatzen** (3); **oso gutxitan aipatzen** (4); **ostian aipatzen** (4); **planak aipatzen** (3); **politika aipatzen** (4); **politika aipatzen baitugu** (3); **premia aipatzen** (3); **sarri aipatzen** (10); **sarriago aipatzen** (3); **sarritan aipatzen** (11); **sarritan aipatzen zuen** (3); **sekula aipatzen** (11); **sekula aipatzen ez** (3); **sortzea aipatzen** (3); **taldeak aipatzen** (3); **testuan aipatzen** (4); **txikiak aipatzen** (3); **txostenean aipatzen** (7); **usu aipatzen** (4); **xeheki aipatzen** (6); **zeharka aipatzen** (3); **zehatzak aipatzen** (4); **zehazki aipatzen** (3); **zela aipatzen** (4); **zela aipatzen da** (3); **zen aipatzen** (14); **zer aipatzen** (3); **zerbait aipatzen** (6); **zergatik aipatzen** (8); **zerrendan aipatzen** (4); **zerrendan aipatzen diren** (3); **zirela aipatzen** (5); **zirela aipatzen zuen** (3); **ziren aipatzen** (4); **zuen aipatzen** (12); **zuk aipatzen** (7); **zuk aipatzen duzun** (5); **zutela aipatzen** (3); **zuten aipatzen** (3)

aipatzera ausartuko (3); **aipatzera ere** (3); **aipatzerik ere** (6); **aipatzerik ere ez** (3); **aipatzerik nahi** (8); **aipatzerik nahi ez** (8); **izena aipatzerik** (9); **izena aipatzerik nahi** (8); **zuen izena aipatzerik** (3)

---

aipatzaile *iz* zerbait aipatzen duen pertsona.

Beraz, arrazaren **aipatzaileak**, arrazialistak, arrazistak, xenofoboak (eta xenofobia partikularrak: hispanofobia, etab.), ez dira denak kuestio berdinak. Joxe Azurmendi

---

aipatze *iz* zerbait edo norbait ahotan hartzea.

Dokumentukoak buruz **aipatze** hura nire buru onaren frogatzako joko zuen. Edorta Jimenez

Bat **aipatze** aldera, Mad Professor bera, Muguruzaren *Urrun* kantuaren remix-a egin zuena. Berria - Kultura

Dialektoen aurka literatura hizkuntza bat sortu duten faktoreak aztertzen badira, beti izango dugu **aipatze** soilean gelditzea; gertaerak modu sistematikoaz edo ez hain sistematikoaz ordenatzen badira, argitasunaren izenean izango da soil-soilik. Isabel Arrigain

Horregatik du halako garrantzia gaia **aipatze** soilak. Berria - Mundua

(izena osorik **aipatze** hutsak botalarria ematen dit) ez dituzte ez, berehalakoan itxi, debekatu edo desegingo. Iñaki Segurola

Ez zeukan zentzurik emaztea kezkarazteak, ahizpa **aipatze** hutsak nola larritzen zuen jakinda. Iñaki Mendiguren

Ut, ut, zeuek izango zineten lehendabizikoak ni gelatik ostikoka botatzen haren izena **aipatze** hutsagatik. Anjel Lertxundi

Haren izena **aipatze** hutsak urdaila nahasten dit. Oskar Arana

Arrandegia **aipatze** hutsarekin janguraren harra bihurka hasi zen lekukoen sabelean; kapeluak eta txanoak hartu, eta amaitutzat jo zuten egun hartako lana. Jose Morales

Bere maitearen izenaren **aipatze** huts ezustekoarekin, Abasi bihotza bortizki hasi zitzaion punpaka. Patxi Zubizarreta

Fikzioak gogaitu samarra nauka aspaldion, aitortu dudanez, baina hortik ihesi ez nuke erori nahi neure buruaren **aipatze**-apaintze obsesibo batean. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aipatze aldera (4); **aipatze hutsa** (6); **aipatze hutsak** (11); **aipatze hutsarekin** (6); **hori aipatze** (3); **izena aipatze** (5)

---

aipatzearren *adlag* aipatzeko.

Adibide bat **aipatzearren**, Ernest Hemingwayren Madrilgo denboretako Antonio Ortega kapitain eusko-errepublikanoa "militarki matxinatua izan delako" akabatuko dute. Edorta Jimenez

Egia, kronologian behintzat parekoa izango litzatekeen kasua **aipatzearren**, diruzale edota doilorrari "judua" deitzen zaiola oraindik, eta normaltzat ere jo daitekeela irainen bizitza luzea. Bernardo Atxaga

Kontu bakar bat **aipatzearren**, umorea baino ez dut aipatuko: adituek diotenez, gaur egungo iragarkietan %80a pasatxok umorea darabil aldez edo moldez. Joxerra Garzia

Conrad, Kundera, Gordimer, Atkwood edo Benedetti, bakar batzuk **aipatzearren**. Ana Urkiza

Jendearentzako ezagunenak **aipatzearren**, liburudendek esate bateko, % 20a, edo bestela esan, 600 pezta irabazi dute liburu bakoitzeko. Patziku Perurena

Hori, ikerketaren alderdi jostagarria ez **aipatzearren**, askoz atseginagoa baita biren artean bakarka baino. Juan Garzia

Hori, ez **aipatzearren** hainbat egokiera, bizitzak ezinbesteko dituen eta beste planetetan, ez Marten ez Venusen ez bestetan aurkitzen ez ditugunak: ura. Juan Garzia

Ba omen dira katuen tamainako arratoiak, beste piztia batzuk ez **aipatzearren**. Harkaitz Cano

Muturreko bi joera baizik ez **aipatzearren**, jarrera hauek ere izan dira, besteren artean: [...]. Josu Zabaleta

Lakatos-ek edo Laudan-ek -historizisten arteko filosofo goren bi baino ez **aipatzearren**- Kuhnen gai-zerrenda berriko oinarriari aurre egiten diote, testuinguruen arteko ukazioari, alegia. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baino ez aipatzearren (4); **baizik ez aipatzearren** (5); **bakar bat aipatzearren** (3); **bakarrik aipatzearren** (3); **bat aipatzearren** (13); **batzuk aipatzearren** (11); **ez aipatzearren** (29); **kasua aipatzearren** (3)

---

aipatzeke *adlag* aipatu gabe.

Leizarragarena **aipatzeke**, bi eten edo iraultza nagusi obratu dira gure literaturan. Koldo Zuazo

Izenik **aipatzeke**, Simon Azkue egiazko jainko txiki bat dela adierazi nion, bere zizare erreinuaren gainetik. Hasier Etxeberria

Ez dira halaber **aipatzeke** geldituko sentikortasunaren ondorio makurrak. Jon Muñoz

Hobe dik alferrikako hamar perpaus izkiriatzea, perpaus garrantzitsu bat **aipatzeke** uztea baino; axolarik gabekoa dirudiena usu garrantzizkoa izaten baita. Jon Muñoz

---

aipu **1** *iz* aipatzen den esaldi edo pasartea; aipamena, sona.

Aipua honela hasten da: "Bat-batean bakarrik nago, zerua urdina delako, zuhaitzak berdeak direlako..." eta ez dakit jarraipena. Iñaki Zabaleta

Axularren **aipuak** ustekabean harrapatu ninduen. Joan Mari Irigoien

Aipuak Poeren *To Helen*-etik hartuak dira. Xabier Olarra

Testuko esaldiak hatz batez erakusten bazizkidan ere, ematen zuen buruz zekizkiela **aipuak**. Anjel Lertxundi

William Shakespeare-ren sonetoetatik hartutako **aipua**. Oskar Arana

XIV. mendeko poema ingeles zahar bateko **aipua**. Oskar Arana

Jean Genet-en **aipu** bat daukat esku artean eta ez dakit zein libururi dagokion. Iñaki Zabaleta

Zaila zitzaion **aipu** hura aurkitzea. Iñaki Zabaleta

Antoniak harridurazko betartea ipini zuen semearen **aipua** entzun zuenean. Josu Landa

Zertarako nahi ote zuen Enrikek **aipu** haiek guztiak itzultzea? Iñaki Iñurrieta

Beharbada erantzuna **aipu** hartantxe zegoen. Iñaki Iñurrieta

Jakobsonen testu asko aipa genitzake; historikoki garrantzitsuak eta **aipu** handikoak diren ekarpen batzuk liburuki honetan bilduak aurkezten ditugu. Isabel Arrigain

Nire galeraren **aipuak** ez zituen, itxuraz, asko harritu. Ramon Saizarbitoria

Zutaz egin zidan berba, zure egoeraren **aipu** egin zidan Liverpoolen eta gero Londonen... ni zuri ezer galdetzeko gauza izango ez nintzela jakingo balu moduan. Koldo Izagirre

Inoren ideiak, datuak, **aipuak** eta hitzak erabiltzerakoan zintzo jokatu. Askoren artean

Behin dei horiek guztiak biltzea otu zitzaidan, irakurriak nituen liburuetako **aipuak** fitxetan jasotzea. Iñaki Iñurrieta

Presaz, trena ote zetorren erne, **aipuaren** beste esaldi bat idatzi zuen: [...]. Iñaki Zabaleta

Aipua kopiatu egin nuen gero kartelean idazteko. Iñaki Zabaleta

Aipuen fitxategia: lanerako baliagarri gerta daitezkeen **aipuak** biltzeko eta berreskuratzeko balio du fitxategi-mota honek. Askoren artean

Neure oroimenaren taulatik ditiat arrunkeria funsgabe guztiak ezabatuko, liburu-**aipu** oro, irudi, inpresio iragan oro, gaztetasunak eta oharmenak hara jasoak. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gainbegiratu arina eman orduko ohartu zen testu haietako batzuk berak itzuli ez zituen aipuak zirela, **aipu** luzeak, nahiz eta egilearen edo obraren erreferentzia falta. Iñaki Iñurrieta

Eta bai antzinateko eta elizako doktoreen **aipu** kontaezinak ere. Joan Mari Irigoien

Ramon Zallok, tribuneleko mahaikide baitzen, ohartarazi zigun han bilduoi SKk aurkeztu zuen txostenean ez zela 1980az geroztiko **aipu** bibliografikorik egiten, eta komunikazio kontuetan barkaezina zela hori. Joxerra Garzia

Gauza bat interesgarri gerta dadin, aski da luzaroan hari so egotea -Gabinek, Enrikeren **aipu** frantsesa gogoan, Klararen erreakzioari zelata eginez. Iñaki Iñurrieta

Hori esan eta gero, ziplo bota zuen idazle goren baten **aipu** goratsu bat. Anjel Lertxundi

Ubeldurari buruzko **aipu** malenkoniatsu franko egin zuen emazteak eta gizonak garrasika ekin zion. Mirentxu Larrañaga

CAlaren gida jadanik aipatutik harturiko **aipu** sarkastiko bat zen hura. Juan Garzia

Ez harritu liburu eta **aipu** aspaldikoenetan martxoarekin lotzen bada izen hau apirilarekin bezainbat edo gehiago. Pello Zabala

Gorostiak gurean **aipu** berezia izan du, eta zeresanik ez gorosti-makila aipatzen badugu. Pello Zabala

Elkarrekin bizi ziren, Vauvilliers kalean, behean **aipu** txarreko kafetegi bat zeukan etxe handi bateko hirugarren solairuan. Karlos Zabala

Eta argitturri-**aipu** zeharkakoak Giselaz, nik soportatzen ez nituen zeharkako **aipuak**. Fernando Rey

3 ***aipu egin***

Ostian **aipu egin** nituen politikari horietarik-eta... Menane Oxandabaratz

Antza denez, egilearen asmoa da emanaldietan narratzaile moduko bat tartekatzea, tokian tokiko berezitasun politiko eta sozialei **aipu egiteko**, baina, aurreikustekoa zenez, errazkeriak eta orokorkeriak besterik ez zituen esan rol horretan zegoen Kiti Manverrek. Berria - Kultura

4 ***aipu izan*** da/du *ad* aipatu.

Aipu da ere Irauzketa bere borda eta inguruko pentzeekin. ere Irauzketa bere borda eta inguruko pentzeekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Euskal kondairetan ardura **aipu dira** laminak, neska batzuen idurikoak, bilo hori, baina oinak antzararenak.Gutxienez mende erditik hona apenas erabiltzen den larruarentzako berniz bat **baita** hor **aipu**: esapidea bera desagerbidean dugu gaurgero. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Apez ihardokitzaileen egoera ez zen argi, eta bazuen beldurra zenbait hilabete hauetan **aipu zen** erbesteratzearen gauzatzeko erabakia hartuko zutela azkenean, Parisen. Elena Touyarou

XII. mendean Orreagarik ez **zen aipu**, Biskarreta baizik. Piarres Aintziart

Kontzilio berririk ez **zen aipu** oraino, eta aski genuen aita Boyer jesuita edo aita Garrigou Lagrange dominikarra entzutea. Piarres Xarriton

Ez **nuen** kartzela sistema **aipu**. Koldo Izagirre

Rhin inguruan ibilia zen Hugo 1839an, bidaia hartan idatzirikoak **ditu aipu**. Koldo Izagirre

Bizkitartean **aipu dugun** naturaz gaindiko boterea eliza boterea da, naturaz gaineko gaiak kudeatzeko jarria eta gizakiak beren azken burura bideratzeko egina delakotz

Harrizko maitasun horretatik, eta amiantozko bakardade haietatik, beste gau luze haietako batzuetan uharteak eta askatasuna **aipu duten** bi istorio jaio ziren. Piarres Xarriton

1564-ean Jadanik Juan Perez de Lazarraga arabar idazleak aldi bat baino gehiago **aipu zuen** "Euskel erria". Herria

Castela eta Andriuzziren defendatzaileek agerian jarri zuten Jean Castelaren izena lehendabizi **aipu zuen** polizia ikerketako ohar batek 1998ko urrian izandako gertakari bat aipatzen zuela, sumarioko ohar hark, aldiz, 1998ko agorrilaren 20eko data zeramalarik. Berria - Mundua

Nola ez ikus ordea, Iparraldeko euskaldunok udatiarrei irekitzen genizkielarik gure etxe pollitak eta kanpotiar dirudunei saltzen gure ehiza-lekuak edo baserri xuri pollitak, Hegoaldean alderantziz, Humboldtek **aipu zuen** herri-kontzientziari esker beharbada, herritarren kemenak irekitzen zituela lantegi berriak, sortzen kooperatibak eta eraikitzen ikastegiak, eta jendetze kopurua, orain arte, beti goiti zihoala? Piarres Xarriton

Baionako apezpikuarengandik gutun bat ukana zuten berrikitan, barrutiko beste apez guziek bezala, Parisen Elizaren ontasunak erresumako ontasunetan sartzea **aipu zutela** abisatzen zituena. Elena Touyarou

· "Edozein belar pila ez baita meta", gogoratzen digu Lertxundik, Mitxelena **aipu**, delako esaldi horren iruzkintxoan. Joxerra Garzia

5 ***aipu marka*** esaldi bat aipua dela adierazteko, haren hasieran eta bukaeran jartzen den ikurra.

Kazetariak entrenatzaileak esandakoa jaso nahi baldin badu, **aipu marka** artean eman beharrekoa zuen. Iñigo Aranbarri

Hiru hitz **aipu marka** artean biltzea, egin liteke. Iñigo Aranbarri

6 ***aipu zuzen***

Testuan, Eusko Jaurlaritzak gogora ekarri zuen gaur egun era batzuetako indarkeriek eragiten dutela, eta, hala, Azkarragak **aipu zuzenak** egin zituen ETAren jarduerari eta biktimen, torturatuen edo presoen egoerari buruz. Berria - Harian

"2000. urtean Garoñako eta Zoritako zentralen itxiera aipatu zen hitzez hitz», gogorarazi du Greenpeaceko arduradunak, "eta aurtengo programan, ordea, ez zetorren Garoñari buruzko **aipu zuzenik**, nahiz eta PSOErekin egin ditugun bileretan argi eta garbi onartu ziguten zentrala itxi egin behar dela». Berria - Euskal Herria

7 ***zehar-aipu*** zeharkako aipua.

Belarrien **zehar-aipua** arbitrarioa da, eta keinua, berriz, jatorriz, sinagogan judu prestuek trukatzen zuten agurraren parodia sakrilegoa zen. Juan Garzia

Azken hori, Sbarüa delakoa, nago Sandrok berak aurkitua ez ote zen, edo haren anaia mitiko batek, zeinak, Sandrok inoiz ezagupidean jarri ez bazidan ere, **zehar-aipu** urrien argitan, Sandrok hilkor arruntokin zuena bezalako tratua bide baitzuen Sandrorekin. Juan Garzia

Ezer ez zitzaion azaleratzen barne-itxitasun haren geruzatik kanpo, haren baita sakoneko mundutik ezer -bete-bete eta emankor sentitzen bazen ere mundu hori-, inoizkako **zehar-aipu** dramatikoki mozturen bat edo beste salbu. Juan Garzia

Puntu honetan nire hizkuntza lauso eta **zehar-aipuzko** bihurtzen bada, hori ez zaio nire ezjakintasunari bakarrik zor: [...]. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ainitz aipu (24); **ainitz aipu da** (5); **ainitz aipu dena** (4); **ainitz aipu dira** (3); **aipu bat** (24); **aipu bat ekarri** (3); **aipu batez** (5); **aipu da** (53); **aipu da ere** (6); **aipu dela** (6); **aipu delarik** (4); **aipu den** (23); **aipu dena** (9); **aipu dira** (19); **aipu dira eta** (3); **aipu diren** (8); **aipu ditu** (5); **aipu duen** (8); **aipu dugun** (3); **aipu dute** (13); **aipu dute ere** (4); **aipu duten** (8); **aipu egin** (4); **aipu eta** (13); **aipu ez** (3); **aipu ginuen** (6); **aipu haiek** (3); **aipu hau** (4); **aipu hori** (4); **aipu hura** (4); **aipu izan** (7); **aipu ugari** (3); **aipu zen** (23); **aipu ziren** (7); **aipu zuen** (3); **anitz aipu** (3); **aspaldian aipu** (15); **aspaldian aipu da** (5); **aspaldian aipu den** (3); **aspaldixkoan aipu** (6); **aspaldixkoan aipu da** (3); **azkarki aipu** (5); **bainan aipu** (3); **baino gehiago aipu** (3); **bat aipu** (4); **berean aipu** (3); **berriz aipu** (7); **berriz aipu da** (4); **bulta huntan aipu** (9); **buruzko aipu** (4); **da aipu** (11); **den aipu** (3); **denek aipu** (3); **denetan aipu** (3); **dio aipu** (3); **dira aipu** (3); **du aipu** (3); **egin dio aipu** (3); **en aipu** (5); **ere aipu** (9); **eta aipu** (12); **ez da aipu** (4); **ez zen aipu** (3); **gehiago aipu** (9); **gehiago aipu da** (3); **gehienik aipu** (3); **genet en aipu** (5); **hainbeste aipu** (4); **hor aipu** (3); **huntan aipu** (10); **huntan aipu da** (4); **huntan aipu den** (3); **huntan aipu zen** (3); **ja aipu** (3); **jadanik aipu** (3); **usu aipu** (3); **zen aipu** (3)

---

aipudun *izond* aipua, sona duena.

Orkolaga maisuak eta bere eguraldiarekiko "sistema" **aipudunak** egundoko estimazioa lortu zuen Kantabria parteko arrantzaleengan lehenbizi, baina ez txikiagoa barrualdeko baserritar koitaduengan. Pello Zabala

---

aipugile *iz* aipua egiten duen pertsona.

Gainerakoetan, idazle batek aipuarekin batera **aipugilea** ere izen eta guzti aitortzen duenetan, axiomatikoa da legea: idazleak on du aipatutakoaren itzala, bai hark esandakoa hobetu ezin duelako, bai haren itzalak babestu egiten duelako ere. Anjel Lertxundi

---

aipugintza *iz* aipuak egitea.

Irudi luke berbalau ari denean eskema nagusiak emandako segurantzaren baitan ari dela, eta **aipugintzan**, berriz, "dena esanda dago" horren aitzakiatan, lotu egiten duela berezko etorria. Iñaki Iñurrieta

---

aiputxo *iz adkor* aipu xumea.

Euskal kazeta, irrati, telebista eta aldizkari batzuetan genero literatura dramatikoa, poesia, kritika bera, biografia, zientzi fikzioa... batzuen gaineko iruzkinik (edo **aiputxorik**, sikiera) ere agertzen ez den bitartean, [...]. Berria - Kultura

---

airakor *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi) iz* airatzeko joera duena.

Hondartzaren ertzean itsasoa egon behar zitekeen lekuan, basamortu bat zedaen, mugagabea, eguzkiak azken puntaraino argitzen zuen hondarraldi bortitz bezain idorra, uhin eta aparrik gabeko harea fin-fineko eremu zabala, zuria, beroa, **airakorra**, itolarria sortarazten zuena. ETC-literatura, saiakera

entzunez: bihotza amodioz hantzen zidan opusaren lehen mugimenduko 5: 38 eta 8: 52 minutuen tarteko biolin joko **airakorraren** preziatzeak. ETC-literatura, saiakera

Hamahairu urteak aurrean eginik ikasketen amaiera, hor hartu atseginaren parrean erranezinezko beldur batek hartua; heian sentimen **airakor** hori ote zen ondorio galkorren bezpera? ETC-literatura, saiakera

Jakina, idatziak betikotasun fosilizatuan bizi-hazten dira eta erranak hegaldatzen, hitzak gasaren antzekoak direlako nonbait, **airakorrak** eta frankotan friboloak. ETC-prentsa

Etiopia sablea da, iragankorra, **airakorra**, Danteren itzaletik jauki infernu bat, abertzaleen ideologiak aldarrikatzen duenarekin kontrestan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

airaldi *iz* zerbait airatzen den aldia.

Abendoaren 6 an Santa Terexa ikastetxeko burrasoen elkarteak antolatzen du balon **airaldi** bat, ondotik aratsean 9 etan Haritz-Barneko antzokian ikusgarri bat eta musikaldia. Herria

Ameriketan NASA erakundeak jakinarazi du berria: 2018an ilargiratuko direla, aitzineko **airaldia** 1969 an egin zen ondoan eta lehengo aldian baino lau aldiz denbora gehiagorentzat, hots aste oso bat. Herria

Beharrik ez baiginuen deusik hartu Parisen, bigarren **airaldian** ere baginuen, sartuko orduko, tragotxo batzuen manera: iranja-jusa, sagar-jusa ala tomate-jusa? Herria

Damurik halere **airaldi** horren kontrola galdu baitute Moskuko zaindegian zirenek. Herria

airarazi, airaraz(i), airarazten da/du *ad ipar* airera jaurti, airatzera behartu.

Coumet auzapezak bere aldetik Xinako "Davidium" zuhaitz berezia du landatu, urtxo andana eder bat lau haizetara **airarazi** aintzin. Herria

Larunbatarekin eginen dira Ortzaizen ekintzak: aratsaldeko 4 orenetan, Ortzaize, Arrosa eta Bidarraiko haurrak elgarretaratuko dira berek marrazkitu baloi batzu **airarazteko**. Herria

Harri pikor eta errauts **airaraziz**, Piarres-en aratsalderoko martelu eta zizel ukaldiek eman diote emeki-emeki forma eder bat harri lauzari. Herria

Gizona kontuar gibelean, zut-zuta zegoen, estrategia hitza ahots indartsuagoz **airarazi** zenuen batez, landerra susmatuz. Itxaro Borda

Gizonak irri zaparrada ozena **airarazi** zuen, Louise hapa-hapa hurbiltzen zitzaiolarik. Itxaro Borda

Handik laster Mikelen txistua erantsi zitzaion musika-taldeari, herriko xantreak bere ahots sakonaz, hitzik gabeko kanta batzuk **airarazten** zituela. Itxaro Borda

Lehen aldikotz, Hatsa eta Maiatz elkarteko literaturazaleak, Mikelazuloko-en partaidatzearekin, lotu dira paperezko ostoetatik abartxoetako ostoetara olerkiak **airaraztera**. Herria

---

airatu, aira(tu), airatzen **1** da/du *ad* aireratu; hegaldatu, desagertu; hautsaz eta kidekoez mintzatuz harrotu.

Miarritzetik **airatu** zirenetik, hogei bat oren pasa zituzten hegazkinetan baita ere Parisko aireportuko pasabideetan itxoiten. Ramuntxo Etxeberri

Segidan azpiletik jauzi egin zuten xoriek, lumaz estali ziren, **airatu** eta kantuz hasi. Piarres Aintziart

Edurne **airatua** zen. Ni okindegira joan bitartean alde egina noski. Aingeru Epaltza

Haizeak **airatzen** duen orbelaren marmarra. Patxi Zubizarreta

Alargunak ere ikusia zuen zeruan gora **airatzen**, errausturik, bere bizitzaren parte handi bat. Imanol Zurutuza

Pozaren pozez, ene buruko min eta kezka guztiak **airatu** zitzaizkidan. Daniel Landart

Gauza gehiago ere banuen papertxoan idazteko, baina ez dut nire intimitatea **airatuko**. Ramon Saizarbitoria

Lainoa han-hemenka **airatzen** hasia zen. Aurelia Arkotxa

Ez da kontzientziaren azpitik **airatzen** hegaldaka; kontzientziatik, kontsignapetik, agindupetik mintzo da ezinka. Iñaki Segurola

Atorraren loditasunak ez zion haize hotzari bide handirik mozten eta barneko berotasuna segidan **airatzera** uzten zuen. Eneko Bidegain

Baina beldurra **airatu** da, apezlarruaz beztitua nintzela neretu dudalarik. Piarres Aintziart

Lur gorrailezko bidean, orain, goizetan hain goxoa denean, tenore honetan zangoek errautsik ez baitute **airatzen**. Piarres Aintziart

Pinpirinak bai, nonahi eta noranahi **airatzen** direnak, askatasunaren sinbolo, arintasunaren ikur, hisialdi batak edo besteak han edo hemen pausatzen dituela. Piarres Aintziart

Ordu berean etxeko murru, ate eta leihoak Xabina maitearen aurpegi alai bilakatu dira eta akidura **airatu** zait. Piarres Aintziart

Beren hegal haundiekin lurra jotzen baitute, eta toki zelaian ezin aisa **airatu**. Patziku Perurena

Bakartasuna, larru-gosea, hauts gorri zutoinak **airatzen** eta begiak itsutzen zituzten haizeak- Haren alaba eta biok zainak **airaturik** ginen. Itxaro Borda

2 (era burutua izenondo gisa)

Del Valle zer edo zer erantzuteko puntuan egon zen, baina, hobeki pentsatuta, irentsi egin zituen eztarrian gora igo zitzaizkion hitz **airatuak**. Alberto Ladron Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **airatu da** (12); **airatu dira** (10); **airatu ere** (3); **airatu eta** (3); **airatu zait** (5); **airatu zauku** (4); **airatu zen** (12); **airatu ziren** (4); **airatua zen** (5); **airatuko dira** (3); **airatzen da** (3); **airatzen dira** (3); **aireportutik airatu** (3); **berehala airatu** (3); **eta airatu** (3); **gora airatzen** (3)

---

airatze *iz* aireratzea; hegaldatzea, desagertzea.

Soyouz irriskuz baina osorik Espaziako **airatze** bat egin dute gaueko 4 ak eta 25 etan bi amerikanoek eta erruso batek, denak ere NASA amerikar hortakoak eta Moskukoak eskuz-esku zirelarik esperientzia hortako. Herria

Airatze, hauste edo leku-hustutze hauekin ez da bat bere batera, onera eta lehengo oinera horren aise bihurtzen. Iñaki Segurola

---

airatzear *adlag* airatzeko zorian.

Karrikan zebiltzanean, metro apurrez atzerago egoten zen Graxi, gizonaren traka hortik, hunkigarri kausitzen zuelako: urrats mantsoan bazebilen, **airatzear**, hitzen haria ez ebakitzeko noizbehinka inguratuz; neskak aldiz eskuak paltoko sakeletan zatxizkan gehienetan, begiak pindar, izpiritua laino eta aurrean arin zebilkion itzal handia zangopilatzeko asmoz jostari. Itxaro Borda

---

airbag *iz* automobiletan eta, segurtasun gailua, istripu bat gertazen denean automatikoki puzten den poltsa batek osatua.

Alboetako **airbag** -a, bai ala ez? Jon Alonso

Amak, berriz, gorputz osoan ditu kolpeak eta oinazeturik du, eta segurtasun gerrikoak zein **airbag** -ak sorturiko erredurak ditu aurpegi eta bularraldean. Berria - Euskal Herria

Bihar Europako Espazio Agentziak bidalitako zundak duen bereizmen handiko kamera erabiliz saiatuko dira zientzialariak Beagle 2 robotaren paraxutak eta **airbagak** ikusten. Berria - Gaiak

Oinetako **airbagaren** medioz oinak bide gogorrean goxoki jartzen zaizkit. Piarres Aintziart

-Zenbat **airbag** dauzka honek, Guisfredo? Karlos Linazasoro

---

aire *(ETCn **47.003** agerraldi; orobat **aide** g.er.)* **1** *iz* atmosfera eratzen duen gas nahastura, batez ere oxigenoz eta nitrogenoz osatua; delako gas nahasturak lur gainean betetzen duen bitartea; antza, itxura.

Jendeak durduzaraziz eta gauaren isiltasuna xehekatuz, kazetarien laguntzeko izendatuek pistolak jalgi zituzten, **airea** deblauki tirokatzeko. Itxaro Borda

Eta emakume haiek **airera** botatako hasperen eta hitz erdiei errepartuz gero, nabarmena zen gehienek hartuko luketela Joanes suhitzat, senartzat izan ezean, eta gutxi batzuek, izaeraz odolbero eta ameslari, maitaletzat. Felipe Juaristi

Hotsandiko adierazpen baten **airea** zuen; itxaropentsua zen, misteriotsua eta, aldi berean, nabarmen gezurtia! Nunuren bila irten nintzen lorategira, telegrama eskuan nuela arkupean gelditu eta ozenki esan nion: Ander Irizar

Ni nintzen lehen zure galderak erantzun gabe uzten zituena, baina zu gelditu zara orain, isiltasun horrekin, misterio **aire** batez inguratua. Xabier Mendiguren Elizegi

Zabal leihoak, etxeko bazter denak argiz eta **airez** saneatzeko. Pello Zabala

Jaioterriko **airea** sentitzen genuen. Patxi Zubizarreta

Oroitzapeneko atea ireki nion: "Nekaneren **airea** nuen, Nekaneren antzera izugarri alaia nintzen...". Iñaki Arranz

Baina han bazebilen zerbait, distiratzen, **airean** zilarrezko hego bat astintzen. Anton Garikano

Esate baterako, honela: eta lasaiturik pasatuko ditu orriak, ez baita itsasontzirik hondoratu, ez hegazkinik **airean** lehertu, ez odolik alferrik isuri. Imanol Zurutuza

Estrategia sinple baina unibertsal horrek primeran funtzionatzen du: XIX. mende beltzak Pazko Igande baten **airea** hartzen dizu, Espainiaren modernizazioarena. Joxe Azurmendi

Pare-parean daude orain, hogei zentimetro **aire** besterik ez bien artean. Iban Zaldua

AEBetako marineekin batera, Silicon Valleyko teknologien segurtasuna bermatzen duen ukabil ikusezina da lurreko, itsasoko eta **aireko** armada. Txema Ramirez de la Piscina

-Hontzak ez dira ezer hor **airean** dabiltzan zurrumurruen aldean. Iñaki Mendiguren

Sartzen zara, eta aitoren semeen etxe artean zaude; Inkisizioaren **airea** arnasten duzu; karrikaren beste muturrean ikusten duzu zutik Felipe Iløaren mamu zurbila. Koldo Izagirre

Zertarako irakurri, gainera, **airean** baitago haien izpiritua? Juan Garzia

Gizakiaren premiak mugaezinak omen dira, eta baliabideak berriz - eta hori ondotxo dakigu -, mugatuak, baita arnasa hartzeko behar dugun **airea** ere. Iñaki Heras

Kontuak kontu, errazago eusten diegu, arnasa hartzen baina **airea** guk neurtuta. Urtzi Urrutikoetxea

Morriconeren aria gisako **aire** bat. Iñigo Aranbarri

Jotzeari utzi zionean, andreak, gela bete zuen soinu bat eginda, bafada batez biriketan zuen **aire** guztia bota zuen. Fernando Rey

Pieza horiek badaukate aspaldiko **aire** bat, gaur entzuten ez diren hari melodiko harrigarriek osatutakoa. Pako Aristi

Izan ere, zerbait bazebilen **airean**. Karlos Zabala

Galdera **airean** geratu zen. Edorta Jimenez

Bizkaiko baiako **airean** barreaturik gelditzen ziren elementu guziak bildu beharrez ibili zen. Aurelia Arkotxa

" **Aireak** baino pisu handiagoa duen zerbait ez duzu inoiz ere hegaz egiten ikusiko" zioen, zalantza izpirik gabe. Pello Salaburu

Pilarrek hasperen sakona egin zuen, eta botatako **airea** kez nahasturik atera zitzaion. Aitor Arana

Lehenengo euri tanta lodiak kristalaren kontra hautsi ziren **airez** puztutako suizida potoloen gisan. Unai Iturriaga

Marcosen ahoak **aire** gehien behar zuenean, ilegorri-moltsoa sartu zitzaion barrura. Unai Elorriaga

Bere inguruko guztiek oso argaltzat jotzen zutela jakin arren, bost axola zitzaizkion uste horiek guztiak Sveni, zeren eta, gutxi jate horri esker, luzaroago eutsiko baitzion **airean**. Josetxo Azkona

Airean utzi ordez, erdibidea hautatuz besaburuan jarri zidan eskua, kamixetaren gainean, eta hantxe utzi zuen, beste edozein mugimendutarako herabe baina ukipen harekin miretsia bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Uste baino gutxiago aldatu zara, baina gauzak, zenbait gauza, ikusiak dauzkanaren **airea** duzu. Lourdes Oñederra

Aireak berak ez du kalekoaren antzik ere. Iban Zaldua

Aire dena txupatu duk hamar minututan, e!? Jon Alonso

Bularretako eta kulerotan geratu ginen eta germaniarrekin hasi ginen jolasten, batek baloi handi hura hartu eta hurrengoari **airetik** botatzen. Joxemari Iturralde

Udaminaren garai hori zen, abuztuko **airea** bero-bero puzka dabilenekoa, saponarien usain ustelak pozoiturik. Juan Garzia

Fragata bat, eta marinelak jartzietan belak biltzen, eta baupres luze bat, akula erraldoiaren ziria **airean** bide egiten, hegan hasi behar duen hegazti zuriaren moko. Koldo Izagirre

Gizona indarge geratu zen, ile hilak arima ebaki zion, eta mototsa **airera** jaurti zuen, urrun. Jasone Osoro

Lantxo bat eskatu didate eta berehala bete behar dugu - esan zion kartazala jaso eta **airean** mugituz. Joxemari Urteaga

Alias komandanteak, azken finean, bere zorroan sartzen zuen berriro errebolberra, errebolber horrek halako arrandiazko **aire** bat hartzen baitzion bat-batean bere begietarako, opera komikoko sable bat balitz bezala. Josu Zabaleta

Niretzat bizitza, bere aldapa, zailtasun eta atsegin guztiekin, urpean gertatzen den kontua baita eta Rita da nire biriketara **airea** eramaten dakien bakarra munduan. Hasier Etxeberria

Eguna luzatzen hasten denean, **airea** epeltzen, edo arratsaldean lantxurda sartu baldin bada, gu bezalakook eragina haragiago sentitzen dugulakoan nago. Pako Aristi

Erpurutxo doktorea izandakoak begiak itxi zituen, burua atzerantz makurtu eta hatz erakuslea **airerantz** luzatu zuen, aspaldi ahaztutako zerbait oroitu nahian balebil bezala. Oskar Arana

Errepidea ondo-ondora sartu dioten arren, badirudi landareek antzinagokoa den beste **aire** bat gorde dutela hemen, eta horrekin elikatzen dituztela euren kimu lerdenak. Pako Aristi

Lehengo fabrika estua eta iluna zen, eta, ordu batzuen ostean, **airea** astuna bihurtzen zen barru hartan, arnastezina. Iban Zaldua

Larruzko zigor baten klaska entzun da **airean**, bortitz eta firrindari. Anjel Lertxundi

Urpeko batean egotea bezalaxe da, **airea** agortzen ari denean, Miximak zioenez. Ibon Uribarri

2 *interj* alde!

Eta esan nion, "hi, **aire** hemendik! ". Antton Olano

Ardoa hustu ahala hustu zuen tabernan bete zuen espazioa, **aire**!, edozein Oteizazaleren estiloarekin. Unai Iturriaga

3 (izenondoekin)

P.-R. andreak **aire** izoztuaz oihuka kexatuz sarrarazi ninduen berehala. Joseba Urteaga

Nire begiek edertasun ilun hura guztia xurgatu zuten, eta birikak **aire** ia ukigarri hartaz bete nituen, intsentsuak eta kandelen keak gozaturiko **aire** hotz hartaz. Alberto Ladron Arana

Bretainiako **aire** malenkoniatsu ezin ederragoak, Korsikako polifonia txundigarriak. Xabier Montoia

Aire epelean kea eta izerdia, hosto berriak eta sustraiak dabiltzala esanen luke. Pello Lizarralde

Lurrazalera irten zenean aho betez hartu zuen **aire** hotza, dastatuz. Iñaki Zabaleta

Batetik, **aire** basatia eta primitiboa dauka eta, bestetik, kantetan ohituta dagoanaren jasa eta jagitasuna. Xabier Amuriza

Aire grisean, bele-saldo bat zihoan hegan, armada zorigaizto hari segika, haren hondarrak amorruz jateko. Koro Navarro

Imajinatzen nituen ondorioz, egunean bietan, olaren hegaspeko taula luzeko **aire** zorrotzean, gasna bakoitzaren inguratzen, gazitzen eta esku-ahur lerdenaz garbitzen, maiatz bukaerako haize karroindatuak lagun. Itxaro Borda

Orkestrak, finean, munduko bazter guztietako musika eta **aire** ezberdinak joko zituela afari-festa haren partaide ororen gozamenerako. Josetxo Azkona

Barau egingo luke, **aire** hutsez bizi! Itziar Otegi

Eta nik ez nion deus esaten, debeku hura sortzetik beretik neureganatua banu bezala, hain zen nabaria, herriko giroan, gai haren inguruan zerbait esateko beldurra... debeku hura **aire** gaizto bat balitz bezala, ikusten ez zena baina beruna baino astunagoa zena, eta guztiok isiltzera behartzen gintuena. Joan Mari Irigoien

Euli-saldo baten burrunba ateratzen zuen **aire** beroak, eta airean jasotako aizkora-ahoaren moduko distirak egiten zituen argiak. Anjel Lertxundi

Ikuskari hura ere, beste asko bezala, demokrata zen orain, magiaz, eta **aire** berrien bultzatzailea. Juan Kruz Igerabide

Birikak airez bete ditu Parisko **aire** kirastutik kanpora. Aingeru Epaltza

Senekismoa arima espainolaren betidaniko eta berezkoa da: "xxxx" - kristautasunak ez zuen egin horri **aire** erlijioso moral bat eman baino. Joxe Azurmendi

Egunkariek berehala heldu zioten gaiari, eta, polizia ikerketak egiten hastekotan zela, han agertu zen ostera Marie, aste bete igaro ondoren, goiz eder batean, bere ohiko salmahaian, osasuntsu baina nolabaiteko **aire** tristeaz. Koro Navarro

Izan ere, haren proposamena mainstream kutsuko pop melodia itsaskorretara mugatzen zen, **aire** neogotikoz eta film futuristetako misterio kutsuaz inguratzen ederki asmatu zuten arren. Patxi Iturritegi

Ostatuan sartzen ziren jendeen bapore eta **aire** hezeek gohaina sortzen zidaten, Fanch bere aldetik herritar adinduekin brezhoneg hizkuntzan eleka ibiltzen zela, gonbidatu bat bazuela arras ahantzirik. Itxaro Borda

Momentu arraroak izan ziren, denboraren kontrakzio bat bezala, akorduan dut enarak zebiltzala uda hasierako **aire** gardenean gezien moduan. Joseba Sarrionandia

Ez nuen **aire** akademikoaren aurrean amore ematen. Lander Garro

Aire elikagarria, salgai. Edorta Agirre

Satanen sufre usaina susmatzen zuten, eromenaren **aire** kutsakorra... J.M. Olaizola "Txiliku"

-Et, et, baina nor dugu hemen? -agurtu zuen Golek betiko **aire** burlatiarekin. Joanes Urkixo

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lanbroak hartzen zuen dena, ez zen almidoi **aire** bat baino ikusten, flotatu egin behar zela bertan ematen zuen. Koldo Izagirre

Soldadu-patruilak dabiltza nonahi; agerikoa da bertakoen urduritasuna; **aire** sapak berak ere arriskua du albiste. Anjel Lertxundi

-Aspaldian ez nituen eskuak lurretan sartu; **aire** ontzikada bat hartzen ari naizela iruditzen zait. Juan Kruz Igerabide

Ez hain zuzen garagardo-edale batek aserik egotzi ohi duena, baizik eta digestio gaiztoaren durundi oinazetsu geldia oroitarazten zuen hots bat, baxuaren doinuko **aire** -jario bat bihotzerre sendaezinak jotako gizon baten eztarritik. Oskar Arana

Clintonek Aruban eta Curaçaon baseak jarri nahi izan zituenean, Kolonbiako narkotrafikoaren aitzakiarekin, Chavezek baimena ukatu egin zion, eta esan zion Venezuelako **aire** -mugak zeharkatzen zituen hegazkin estatubatuar bakoitza eraitsi egingo zutela. Pako Aristi

Annamaria euren lagun egin da, nik ordea eskailburuko galerian eta **aire** -erasoen aterpean noiz edo noiz ikusi ditudalako soilik ezagutzen ditut. Urtzi Urrutikoetxea

Arnasa estutu eta barrengoak amiltzen dizkizun **aire** -lasterra. Lourdes Oñederra

Zigarroa piztu zuen eta, zelten kea gura beste eginez, **aire** hutsuneak betez egon zen itsasoko uhinei begira, ardi bildotsen moduan larru zuriz bazkatzen zirela zelai ilunean. Joseba Sarrionandia

Arratsean ohartzen ginen istant batez ere ez ginela isilik egon egun guztian, ezta, haizeak nolako gustua sentitze aldera, **aire** -ahokada bat hartzeko ere. Fernando Rey

Haurrak ginelarik, eskolako **aire** -hartze denboran, aritzen ginen axkainka. Menane Oxandabaratz

Amorrua gainetik kentzeko hankapetik ere oihu egin nahi eta ezina, **aire** tragaderak faltan izate hura. Harkaitz Cano

Sagar txiki bat atera zuen sakelatik Mandik, argi pindarra begietan, irribarre luze batez, hura gora bota, **aire** joko bat egin zuen. Pablo Sastre

Aire erasoaldietan jotzen zuten deiadarra aditu genuen, eta hantxe ahaztu zitzaidan presaren zergatiaz galdetzea. Edorta Jimenez

Autoan **aire** -freskagarriak jartzen hasi zen, mota guztietakoak: pinu formakoak, limoi itxurakoak, itsasten diren kutxa beltz zirrikitudun horietakoak... Iban Zaldua

Handik aste batzuetara iritsi ziren lehenbiziko aldiz Estatu Batuetara **aire** bidaiariak LZ 127 Graf Zeppelin izeneko ontzian. Pello Salaburu

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Geltokiek erakartzen naute, bereziki gauaren magiak ematen diolarik jendeari epopeia **aire** bat, baten aurpegi ximurtua zizelkatzen duelarik neon bortitzak edo gizon kurios eta begiluzea beha dagoelarik amorosen beraurkitzeari. Piarres Aintziart

galderari ere izenordain galdetzaileari jarraipena emanez erantzun liezaioke batek, iseka **aire** batez: Iñaki Arranz

Kontrola pean zatxikan eremua, nahaspuloa areagotuz, gudarien pausa baratz gisa erabiltzen zuen ATEk gainera, azkenean Armadaren ekintzetaz ez batere kexu **aire**, eta, karia horretara, legez kanpo nehoiz ez ibili familia osoak arrastatzen zituen, beren etxeetan errefuxiatuak gordetzen zituztelako. Itxaro Borda

Haien argiek amets **aire** bat damaiote kasernari, kolore zurbil bat inguruko etxe eta eraikinei. Xabier Montoia

(Nabarmena zen elkarren arteko gangar usaina eta katxondeo **airea** nirekin ari zirenean, Txominek eta Prostatasek zirikadez zipriztintzen zituztenean bestearen hitzak, zirtolari). Jon Alonso

-Zure ametsetako andrearen aldean, uste dut badudan halako xuhur eta ximur **aire** bat. Janbattitt Dirassar

Itxurazale malapartatua, zintzo **aire** horrekin! Karlos Zabala

Halaber, bizarra moztu gabe uzten zuen, iduriz guti artatzen zuen larruaren arrasean; horrek buhame **aire** bat ematen zion eta bitxi egiten zuen oihal ederrez eta frantses modari jarraikiz josiak zituen jantziak ikustean. Elena Touyarou

Eta hona hemen eugenesia-**aire** bat duen esaldia. Askoren artean

Ahurra bilo-**aire** kizkurretan pasatuz. Itxaro Borda

6 ***aire akrobazia***

Baina gauza handirik ez: hainbat ezkontza, hainbat jaunartze, zirkua birritan (Circo Universal, Circo Ringling) eta **aire-akrobaziak** urte batean (1931n). Unai Elorriaga

30 artistak **aire akrobaziak** eskainiko dituzte. Berria - Kultura

7 ***aire armada***

Bigarren Mundu Gerra (1939-1945) amaitu eta ia 60 urtera, gatazka hartan RAF Erresuma Batuko **Aire Armadak** hegazkinetatik ateratako bost milioi argazkik argia ikusi zuten atzo. Berria - Kultura

Beste hegazkin alimaleko bat ere badator, Zanbiako **aire armadakoa**. Xabier Olarra

"Armada, Itsas Armada eta **Aire Armadak** osatzen dituzten Indar Armatuen zeregina da Espainiaren burujabetasuna eta independentzia babestea, eta eskualde batasuna eta Konstituzioaren legedia defendatzea". Pello Salaburu

Agiriak dioenez, AEBetako **Aire Armadak** Saudi Arabia eta Kuwaiteko petrolio eraikinei eraso behar zien lehenik, eta ondoren, ziurrenik, Abu Dhabikoetara zuzenduko zen. Berria - Mundua

Espainiako **Aire Armadako** hegazkin batek 1.900 kiloko kaxa bat bota zuen herenegun 21: 42an Cascanten (Nafarroa). Berria - Euskal Herria

8 ***aire base***

Taktika ariketen zuzendaritza orokorra Torrejongo **aire basetik** egingo dute. Berria - Euskal Herria

Ondo bidean, gaur goizean eguerdia Euskal Herrian jaurtiko du NASA Ameriketako Estatu Batuetako Espazio Agentziak Delta II kohetea, Vanderbergeko **aire basetik**. Berria - Gaiak

9 ***aire berean*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Jatetxearen barnealdea **aire berean** aztertu ondoren, gure begirada leihoaren ondoan eserita dagoen neska batengan pausatzen da. ETC-literatura, saiakera

Errebeilla martxan jartzen zenean, marmariz koleraztatua heldu zitzaion ezpainetarat, eta **aire berean** itzuli erdia egin eta sartzen zen buru eta guzi tapaki azpian. ETC-literatura, saiakera

Aitonak agindu bat ematen zuenean, jasotzen zuen langileak ospa egiten zuen **aire berean**, eta noizean behin langile bat irteten zen saltokitik pakete bat eskuetan. ETC-literatura, saiakera

Begia gainean ezarri orduko igartzen ziotek nondik haizen makalena eta izengoiti bat eransten diate **aire berean**. ETC-literatura, saiakera

10 ***aire bidezko***

Martxan zebilen garraiobide bakarra **aire bidezkoa** zen, sektore pribatuaren esku dagoena. Berria - Mundua

Azken hiru asteetan, AEBetako Armadak **aire bidezko** erasoak ugaritu ditu Faluja eta Ramadi hirietan, Iad Alauik, Irakeko behin-behineko lehen ministroak, AEBei erasoak gelditzeko eskatuko ziela adierazi zuen arren. Berria - Mundua

Hala, merkantzien garraiorako beste bide batzuk bilatu nahi dituzte: **aire bidezkoa** eta itsasontzi bidezkoa. Berria - Euskal Herria

11 ***aire egokitu***

Bidaiari batek gidariari garrasi egin dio **aire egokitua** jar dezan. Eider Rodriguez

Orain, ordea, egiten zuen beroagatik, ez zidan ezer erantzun Brezok etxean ez zegoela egoterik eta jatetxeko **aire egokitua** aipatu nionean. Joxemari Iturralde

Horrez gain, kopilotuak musikaz eta **aire egokituaz** ere arduratu behar izaten du. Patxi Zubizarreta

Ez dago autorik inon, ez telefonorik, ur edangarririk, komunik **aire egokiturik** edota garbitzeko urik. Berria - Harian

Lekuko jantokian bazkaldu dugu, bazkari goxo bat, barnean ere goxo **aire egokituari** esker. Herria

Harryren Manhattango lagunek nahiago izan zuten etxean geratu, beren apartamentu **aire egokitudunetan**, eta auzoko zenbait leialez osatutako talde txiki bat baizik ez ginen bildu. Oskar Arana

Areto hartako **aire egokituak** ez zuen behar bezala funtzionatzen (omenik gabe, neu lekuko), interpretarien zerbitzuak are eta gutxiago (baina, interpretariekin, artean esan dezadan, gauza jakina da...). Jon Alonso

Aire egokitua konpon ziezadatela eskatu nuen hotelean, kanpora irten nintzen eta Habanan barrena ibili nintzen paseatzen, betiere Malekoiaren bila. Jon Muñoz

" **Aire egokitua** izorratuta dago -esan dio autostopistari gidakidearen eserlekuan eseri denerako-; beraz, beroa pasatzeko prest egon beharko duzu". Iban Zaldua

Aire egokitura egokitu zirenetik, itxuragabe itsusitu dira mamuak. Joxerra Garzia

"Gurean **aire egokitua** jarri zigutek. Pablo Sastre

12 *aire-freskagarri*

Ez erabili: Etxerako lurrinak eta **aire-freskagarriak** saihesteko edo ahalik eta gutxien erabiltzeko gomendatzen dute kontsumitzaileen elkarteek. Berria - Gaiak

Autoan **aire-freskagarriak** jartzen hasi zen, mota guztietakoak: pinu formakoak, limoi itxurakoak, itsasten diren kutxa beltz zirrikitudun horietakoak... merkatuan aurki daitezkeen guztiak probatu zituen taxistak, arrakastarik gabe. Iban Zaldua

13 *aire gaizto*

Uxatu **aire gaiztoa** eta iluntasuna burdina distiratsuaz! Agustin Otsoa

Alta, nonbait neronen urguilu propio erraldoia kolpatzen eta urratzen zidan maitasun **aire gaiztoa** aipatu beharko nion. Itxaro Borda

Baigorriko ene oroitzapen ederrak naturari lotuak dira, pentze, mendi, erreka, zeru: harkadia bat, beldurgarria izan zitekeena ere ortzantzak, ortotsak, ximixtak eta **aire gaiztoak** zirelarik. Ana Urkiza

Aita zenari aditua naiz **aire-gaiztoak** jo eta bere hartan fundi zedin desiratu niola arrotzari. Aingeru Epaltza

Eta nik ez nion deus esaten, debeku hura sortzetik beretik neureganatua banu bezala, hain zen nabaria, herriko giroan, gai haren inguruan zerbait esateko beldurra... debeku hura **aire gaizto** bat balitz bezala, ikusten ez zena baina beruna baino astunagoa zena, eta guztiok isiltzera behartzen gintuena. Joan Mari Irigoien

Hainbertze edertasunez suntsiturik, Armeniako Printzea amorostu zen han berehala **aire gaiztoak** burutik beheiti jo izan balu bezala. Aurelia Arkotxa

Ez zaizkio gauzak behar bezala irten -dibortziatu zen, ez ditu seme-alabak ia ikusten-, eta bere aire abailduak ni abailtzen nau, bere porrotaren erantzulea ni naizela sentiarazterainoko **aire gaiztoarekin** uzten nau beti. Anjel Lertxundi

Bestalde, **aire gaiztoa** deritza leku batzuetan tximistari, eta hargatik da Aidegaxto "un genio que forma y dirige las tormentas". Iñaki Segurola

14 *aire-girogailu*

Lorpen harrigarriak erdiesten ditu sudurreko **aire-girogailuak** tenperatura oso hotzetan. Irene Aldasoro

15 *aire girotu* *(ETCn **642** agerraldi)*

Aire **girotuaren** zurrunbiloarekin. Aingeru Epaltza

Argizari urtuaren eta intsentsuaren usaina irteten hasi zen aire **girotuaren** hodietatik. Anjel Lertxundi

Tomasen autoko aire **girotuak** Josurenean baino freskoago sentiarazten ninduen. Aingeru Epaltza

Gimnasia aretoak aire **girotua** du, eta ez dut uste eragin handia izango duenik. Berria - Kirola

Aire **girotua** ez zebilela ongi. Karlos Linazasoro

Hoteleko aire **girotuaren** sistema hondatu egin da, eta gela bakoitzean jarri dituzten haizagailu zaharrek ez dute lortzen umeltasunaren partikulak apur bat dantzaraztea baino. Pako Aristi

16 *aire girotze* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Aire girotzea edo klimatizazioa airea kondizio onuragarrietara aldatzeko teknika eta gailuen multzoa da, bereziki airearen tenperaturaari, hezetasunari eta araztasunari dagokienean. ETC-entziklopedia

Eguzki energiarekin dabiltzan **aire-girotze** gailuak ekoizten hasi da Rotartica. ETC-prentsa

Berogailuak, **aire girotzea** eta beste, gai horrek interesatuak dituenek zenbait pista aurkitzen ahalko dituzte. ETC-prentsa

Aire-girotze naturalari dagokionez, ikus E. eranskina. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *aire-gozagarri* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Arrosazko **aire-gozagarri** batek eguratsa astuntzen zuen. ETC-literatura, saiakera

1 Esprai **aire-gozagarria**, nagusiki etil kloruroz osatua. ETC-literatura, saiakera

-Aire-gozagarri poltsakada bat hartu zuen, auto barruan esekitzen diren horietakoak, pinu itxura eta usainekoak. ETC-literatura, saiakera

Sutegi-usain pixka bat zegoen, eta, harekin nahastuta, aireztatu gabeko oihal sendoek, izerdiak eta erretxinezko **aire-gozagarriak** zabaltzen zutena. ETC-literatura, saiakera

Mendazko **aire-gozagarri** batek ez zuen guztiz ezkutatzen zoko usaina. ETC-literatura, saiakera

18 *aire istripu* *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi)*

Abiazio-istripua edo **aire-istripua** edozein aireontzirekin gertatzen den ustekabeko gertakaria da, lehorrean edo hegaldian. ETC-entziklopedia

Aire istripuz hil baitzen egun horretako 10: 00ak jota zeudela. ETC-prentsa

Bestalde, gutxienez hamar militar hil ziren atzo Caracas hiriburutik gertu izandako **aire istripuan**. ETC-prentsa

Ministroak adierazi duenez, Alemaniako **aire istripuetako** talde bat Nepalera bidaliko du, istripuaren zergatiak argitzen saiatzeko. ETC-prentsa

Bestetik, kutxa beltzak Wa-shingtonera bidaliko dituzte, **aire istripuen** ikerketa bulegora, gertakaria analizatu eta interpreta dezaten. ETC-prentsa

Aire istripu baten ondorioz irla mortu batera eroritako mutiko talde baten gorabeherak kontatzen ditu. ETC-prentsa

Pakistango **aire istripuan** huts teknikoen eragina aztertzen ari dira. ETC-prentsa

Atzokoa, esan bezala, herrialdeko **aire istripurik** larriena izan zen. ETC-prentsa

Aire istripu baten ondorioz Artikoan geratzen den gizon baten istorioa du ardatz. ETC-prentsa

Beste batzuetan, esteka batek egunkariaren hemerotekan dagoen fitxategi batera helbidera dezake irakurlea (**aire-istripu** bat dago zona batean eta bertan gertatutako aurreko **aire-istripuaren** informazioa esteka baten bidez eskain daiteke, adibidez). ETC-zientzia, zuzenbidea

19 *aire kanpai*

Laboratorioaren erdian bazen zur eta beirazko aire **kanpai** handi bat, harrobide eta gasek hiltzearen aurkako geriza bakar baikenuen. Juan Garzia

Izkinetako batean aire **kanpai** bat bazen, eta kanpaiaren aurrean eseria Rita. Juan Garzia

Hurrengo egunerako utzi genuen egitekorik lazgarriena, **aire kanpaiaren** desmuntaketa. Juan Garzia

20 *aire-koltxoi* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Horixe da, bada, banakako sifoiek sifoi-potoen aldean duten abantailarik handiena, **aire-koltxoi** ugari sortzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mathildek barre egin zuen istorio hura kontatu zion perutar marinel gaztea oroitzean; akordatu zen deskribatu ziola nola etzaten zen gomazko emakumearen gainean, **aire koltxoia** balitz bezala, eta nola, batzuetan, haren elastikotasun handia zela-eta, gizonari punpa eginarazten zion. ETC-literatura, saiakera

21 *aire kondizionatu* aire girotua.

Kotxearen barnean aldiz, aire **kondizionatua** pizturik zegoen. Ramuntxo Etxeberri

Aire **kondizionatuaren** ufakada epel erregularrak baizik ez zituen aditzen. Ramuntxo Etxeberri

22 *aire-konpainia*

Iberia (- %1,95) **aire konpainiak** 2005etik aurrera fakturazioa aireratu baino 45 minutu lehenago egiteko exijituko die bezeroei. Berria - Ekonomia

Aire konpainiak asegaitzak direlako, beti gehiago eskatuko diotelako administrazioari, diru laguntzen gerrak gu denon poltsikoa hustuko duelako eta, diru laguntzak amaituz gero, konpainiek alde egingo dutelako. Berria - Harian

1974ko maiatzean TAP **aire konpainiako** jabegoaren erdia estatuarena zen langileek enpresako "faxistak kanporatzea» exijitu eta asteko lanaldia 44 ordutik 40ra jaistea eskatu zuten. Berria - Mundua

Kalapitan segitu zuten, eta haien txanda etorri zelarik, **Aire Konpainiaren** langileak euskaraz agurtu zituen. Ramuntxo Etxeberri

Pixkanaka, denak atzartzen ziren eta langile xarmantek joan-jinak eginez, **aire konpainiaren** bezeroei gosariak ekartzen zizkieten. Ramuntxo Etxeberri

Hori horrela, Karibe itsasoko U-ontzien ehizaldian ontzikide izan zuen Winston Guest aberatsaren **aire-konpainian** zihardueLakoa ere egia da, hura Aerolíneas Guest izenekoaren jabea izan baitzen. Edorta Jimenez

Esate baterako, inor gutxik oroitzen du argazkia atera zen garaitsu hartan, Cabo Jubyn, Antoine de Saint-Exupéry idazlea zegoela, orduan Latécoère **aire konpainia** frantseserako lanean. Patxi Zubizarreta

23 *aire konprimatu*

Aire konprimatua eta metanol/etanol nahastean oinarritutako sistemak, esaterako, erabiltzen dira etxeko elektrogailu txikietan eta erregai-pila txikietan. Berria - Gaiak

Gaur egun Pexgol-ez eginiko hodiak jariakin asko garraiatzeko erabiltzen dira, **aire konprimatuko** sistemetan, berotze kolektiboko sistemetan, birfindegietan eta erregaiak garraiatzeko,.. Berria - Gaiak

24 *aire konprimitu*

Hotza latza, eta **aire konprimituzko** pistolarekin ari zirelarik, hatsaldi bakoitzean (gabe gehiago produzitzen zela eta, ez zieten maskarillarik eskaintzen) coke hauts pila irensten zuten. Pablo Sastre

25 *aire kontinental* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Europako eta Ipar Amerikako toki ez-kontaminatuetan, 100-300 ppt-ko balioak hartzen ditu; eta **aire kontinentalaren** masa kontaminatuetan, zenbait ppb-tako balioetara irits daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

26 *aire kontrolatzaile*

Frantziako **aire kontrolatzaileen** greba, bertan behera. Berria - Ekonomia

Aire kontrolatzailea den Charley Paparen ezagun batek, Long Island parean abiadura handiz New Yorkeko kostatik urruntzen zen marina amerikarreko gerrauntzi bat detektatu zuela ziurtatu omen zion. Harkaitz Cano

Erevandik abiatu zen hegazkina Errusiako **aire kontrolatzaileen** pantailetatik desagertu zen 02: 15ak inguruan (00: 15 Euskal Herrian). Berria - Mundua

27 *aire korronte* aire-lasterra.

Guyanan, eguraldia ez da txarra berez, baina, atmosferan **aire korronte** bortitzak dabiltza. Berria - Gaiak

Eta haizea ez da haizea, makina batek sortzen duen **aire-korrontea** baizik. Jon Alonso

Guyanan, eguraldia ez da txarra berez, baina, atmosferan **aire korronte** bortitzak dabiltza. Berria - Gaiak

Aire-korronte indartsuak. Santiago Iruretagoiena

28 *aire-kutsadura*

Aire-kutsaduraz gainera, desertizazioa ere ez da urruti izango. Pello Zabala

29 *aire kuxin* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Burua diskoaren azalean gora eta behera dabilenean, **aire-kuxin** batek eragotzi egiten du buruak diskoa zuzenean ukitzea -hala egin ezean, burua apurtu egingo litzateke, eta datuak galdu egingo lirateke-. ETC-zientzia, zuzenbidea

30 *aire lehor*

Airoso eta airosa ibiltzen dira, hor goian hego haizezko **aire lehor** epelak iratzarriz gero, tximeletak eguerdi eguerdiondoan. Pello Zabala

Egun epel zoragarria, gardena eta argitsua; zuhaitzen artean armiarma sare ixpien modukoak zebiltzan hegan, **aire lehor** eta garbiari dirdaia zerion eta gauza guztiei esmalte fin eta leuna ematen zien aire hark, halako eran non ostertzean ageri zen guzti-guztiak akuarelaz edertua ematen baitzuen. Ander Irizar

Leku horietan, **aire lehorra** atmosferaren geruza altuetan mantentzen da euria egin ondoren. Berria - Gaiak

Udako arratsaldea zen, astuna, itogarria, **aire lehor** eta hautsez betekoa. Josu Zabaleta

31 *aire-lore* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Aire-lore edo tillandsia Bromeliaceae familiako genero baten izen arrunta da. 730 espezie inguru ditu, hegoaldeko Estatu Batuetako, Ertamerikako eta Hego Amerikako baso, mendi eta basamortuetan bizi direnak. ETC-entziklopedia

32 *aire masa*

Ipar haizeak jatorria Ipar Poloan zuen **aire masa** hotza bultzatu zuen zuzenean atzo Euskal Herrira eta, ondorioz, hoztu egin zuen. Berria - Euskal Herria

Alegia, tenperatura gradu ezberdinean dagoenez, **aire-masak** denak berdinean kokatzeko enpeinua dute, urak nibelatzeko egiten duen esfortzu berean. Pello Zabala

Oraindik badago dardara handion beste kausa bat: haize eta **aire masa** handi bat, kanpotik edo lur barrutik sortua, lurpeko hutsu-neetan zehar oldartzen. Xabier Amuriza

33 *aire masaje*

Adrianok ez zien batere federik medikuei, eta ziatika izan zuen batean bulgariar batengana joan zen **aire-masajeen** bidez senda zezan. Fernando Rey

34 *aire nabigazio* *(corpusean ez dago; ETCn 74 agerraldi)*

Baina **aire-nabigaziorik** gabe ere, aspaldikoa da Tarfayaren garrantzia, bide luzeen geltoki. ETC-literatura, saiakera

Eta Reimsera itzulia zela kontrolatzaile-ikastaro bat egitera Champagneko **aire-nabigazioko** zentroan. ETC-literatura, saiakera

Helikopteroek gehienezko altuera mugatuta dute, **aire nabigazioarekin** arazoak saihesteko. ETC-prentsa

Hala, Ortigosaren arabera, "libre izango diren eta behar dituen frekuentziak Estatuari emango zaizkio, babes zibilerako edota **aire nabigaziorako** ". ETC-prentsa

Aipatzen dena da oso litekeena dela Aenak Erreniegan duen komunikazio zentrotik gertuen dauden bi antenek sortzea **aire nabigazioa** arriskuan jartzen duten interferentziak. ETC-prentsa

Aire nabigazioko sistema martxan zebilen, eta eskifaiak, uneoro, eguraldiaren inguruko zein lurreratzeko aukera posibleen inguruko berri izan zuen. ETC-prentsa

Hain zuzen ere, iragarri du hiruhileko honetan onartuko duela **aire nabigazioaren** kontrolatzaileen soldata murrizteko erreforma. ETC-prentsa

Bi zatitan banatuko da AENA: alde batetik, **aire nabigazioa**, eta bestetik, aireportu zerbitzuak. ETC-prentsa

Leku horietan telefonoaren uhinek interferentziak eragin ditzakete aparatu medikoetan baita **aire nabigazioko** sistemetan ere. ETC-prentsa

Hori dela eta, erdi-latitude horietako **aire-nabigaziorako**, mapa topografikoetarako eta mapa metereologikoetarako erabiltzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Uhin-luzera txiki hau dela-eta, **aire-nabigazioetan** radar-sistemetan erabiltzen dira, baita materiaren ezaugarri atomiko eta molekularren azterketan ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aenak Espainiako aireportu guztiak kudeatzen ditu, bai eta aireportu pribatu batzuetako **aire-nabigazioa** eta base militar batzuk ere, azken hauek Espainiako Indar Armatuekin batera. ETC-entziklopedia

Aire nabigazio karten kasuan, non azimut magnetikoa erabiltzen den, norabide deritzo. ETC-entziklopedia

Instrumentu hau oso garrantzitsua izan zen itsas nabigazioan eta **aire nabigazioan**, XX. mendearen amaierara arte, sistema berriek alboratu egin zuten arte. ETC-entziklopedia

Aire nabigaziorako balio dituen lau prisma ditu. ETC-entziklopedia

35 *aire polar*

Nolakoa zen amamak kantatzen zidan lo-kanta hura? Gizona **aire polarraren** inbasioko lurralderaino ere iritsi da. Berria - Kultura

36 *aire poltsa*

Eta, hegoak bultzatu ahala, honuntzaka pasatzean, bitxia zena, bertan desegiten eta ezabatzen zirela: Aibala! Fan dok! Lainoa ffiixxt! eta akabo! **Aire-poltsa** beroago eta lehorragoak suntsitu eta xurgatu egiten zion umeldura eta hezkura. Pello Zabala

Glotisa itxita, beste hersketa batekin **aire poltsa** itxia eratu eta, glotisa igo beharrean, jaitsi egiten bada, aire itxi horren presioa jaitsi egiten da, lekua handitu egiten zaiolako. Lourdes Oñederra

37 *aire posta*

Mintzaldia ezin izan diat gaur arte jaso, baina honezkero **aire postaz** igorria duk. Edorta Jimenez

38 *aire presio*

Orduan, glotis gaineko hersketa irekitzen denean, airea sartuko da ahoan, aho barreneko **aire presioa** hiztunaren ingurukoa baino txikiagoa delako. Lourdes Oñederra

39 *aire sorgailu* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Dena den, paisaiako eta kulturako osagai bereizgarria denez, oso gogorra izango litzateke bertan, goian, **aire-sorgailuak** daudela ikustea. ETC-prentsa

Enpresak dio Altsasun **aire sorgailuetarako** ekoizten den pala mota ez dela bideragarria eta fabrikak ez duela nahikoa lekurik beste pala batzuk egiteko. ETC-prentsa

Dena den, paisaiako eta kulturako osagai bereizgarria denez, oso gogorra izango litzateke bertan goian **aire-sorgailuak** daudela ikustea. ETC-prentsa

Zentral hidraulikoetarako sorgailuak eta **aire sorgailuetarako** prototipoak egiten ditu han. ETC-prentsa

Gaur egun mendilerroaren zati handi batean **aire sorgailu** ugari daude, izan ere, Nafarroa Garaian iparraldeena dagoen **aire sorgailu** parkea osatzen dute. ETC-entziklopedia

Nahiz eta kotxeak garraiatzeko eraiki, noizbehinka bestelako zamak garraiatzeko ere erabiltzen dira, 2009an Bilboko portutik New Yorkera **aire-sorgailuen** makineria garraiatzeko esaterako. ETC-entziklopedia

40 *aire txar*

Zerraturik iragan zituen egunetan, eguerdi eta arrats aldera, auzoko apartamentuan **aire txarrak** buhatzen zuen: han zegoen bikoteak bazkaria elkar erasiatzen pasatzen zukeen, oihu eta garrasika. Itxaro Borda

Aire txarrak ateratzen, hezueria eta hidropesia sendatzen, giltzurrun eta gibeleko harri eta gaitzen kontra ere oso ona omen. Pello Zabala

41 *aire zabal* barruti estalietatik at dagoena. ik beherago **11.**

-Hilobia **aire zabalean** dago ala estalia da? Patxi Zubizarreta

Iruditzen zait hirietan ere komeni dela **aire zabalean** eta eguzkitan pasealekuak egitea. Santiago Iruretagoiena

Dohakabeek, aterperik gabe, **aire zabalean** nozitu behar ekaitz zitala. Karlos Zabala

Aire zabalean biluzik egotea, horra egun hauetan Mikelek ahanzturatik erreskatatu duen bertze sentsazio bat. Aingeru Epaltza

Portikoen tartean eta **aire zabalean** geratzen diren espazioak landare berdeekin apaindu behar dira, aire librean egindako paseoak oso osasungarriak izaten baitira. Santiago Iruretagoiena

Material merkea da, **aire zabalean** egonkorra, ez da herdoiltzen, isolatzaile termiko, elektriko eta akustikoa da eta erresistentzia mekaniko egokia du. Berria - Gaiak

Gure artean, ordea, **aire zabaleko** pasealekuei deitzen diegu *xysta,* eta horiei grekoek *paradromidas* deitzen diete. Santiago Iruretagoiena

Iluntzean Plaza Gorriaren inguruko **aire zabaleko** jatetxe horietako batean jaten duen italiar erako platerak asetzen du Carlsen. Edorta Jimenez

Karrikara atera behar zenuke, **aire zabalera** , osasuna galduko ez baduzu. Alberto Ladron Arana

Konradek haurtzaroko eta gaztaroko zurbiltasun bera zeukan, eta etxetik atera gabe bizi zela ematen zuen, **aire zabalera** atera gabe. Xabier Olarra

Kaleak baleude haizeen kontra zuzenean jarrita, haize zakar eta ugariak sartuko lirateke zeruko **aire zabaletik** . Santiago Iruretagoiena

42 *aire zabalean*

Han, bihurgunean, **aire zabalean** egoteak higaturiko haitz zahar batek mozten zuen, antzina mendiko labeek goitikaturikoak. Agustin Otsoa

Dohakabeek, aterperik gabe, **aire zabalean** nozitu behar ekaitz zitala. Karlos Zabala

Hala ere, atsegin hartu nuen **aire zabalean** ... Bernardo Atxaga

Jazzaldiaren ataria, iaz bezala, **aire zabalean** antolatutako ekitaldia izango da. Berria - Kultura

Estreinako aldiz, Olinpiar Jokoak telebistaz jarraitu ahal izan ziren, eta, patinaje artistikoko probak pabiloi batean jokatu ziren, eta ez **aire zabalean** . Berria - Harian

Material merkea da, **aire zabalean** egonkorra, ez da herdoiltzen, isolatzaile termiko, elektriko eta akustikoa da eta erresistentzia mekaniko egokia du. Berria - Gaiak

Allahu akbar, Jainkoaren nagusitasun guztien gaineko nagusitasuna **aire zabalean** aldarrikatuz, eta estasizko kantuan errepikatu egiten du. Jon Alonso

Zergatik zagoz dudan, beraz, gorputzetik kanpora jaurtitako arima ahulak, **aire zabalean** eta babesgabetuak, ezin duela, betiraun osoan ez ezik, denborarik laburrenean ere iraun? Xabier Amuriza

Denek oso oihu ozenak egiten zituzten eta **aire zabalean** esan nahi zituzten birao guztiak esaten zituzten, eta baten batek hitzetik hortzera zera botatzen zuen: gogortu egin zait. Pello Lizarralde

Aire zabalean biluzik egotea, horra egun hauetan Mikelek ahanzturatik erreskatatu duen bertze sentsazio bat, ezkondu eta egunero bulegora joateko lepo inguruan gorbata lotzen hasi zenetik sentitzen ez zuena. Aingeru Epaltza

Burua goratzen zuten eta gaztaroko maitasun zirraragarrien historiez mintzatzen ziren, urtaro goxoan bide onetik doazen historiez, burua arin duzula **aire zabalean** ibil zaitezkeen denborako historiez. Fernando Rey

Aire zabalean egiten dituzte dantzaldi handi horiek, maitagarrien zirkulua deitutakoan. Julen Gabiria

43 *aire zabaleko meategi* *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Aire zabaleko meategia edo atari zabaleko meategia mineralak ustiatzeko metodo bat da, lurraren gainazalean egiten dena. ETC-entziklopedia

Baztanen Magnak Erdizeko herri-alhalekuan egin nahi duen **aire zabaleko meategia** edo Lekarozko Aroztegiko pelotazo urbanistikoa, adibidez: biak ere landa eremuaz kezka bizia hartzen duten gobernuek bultzaturik. ETC-prentsa

Aire zabaleko meategiek , harrobiek eta legar-hobiek berriztatze-plan bat behar dute, besteak beste, ustiatze-jarduera amaitu eta gero lur-eremu berri bat eratzea bermatuko duena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gehienak **aire zabaleko meategiak** dira, eta haien produktibitatea Europakoena halako bost da. ETC-zientzia, zuzenbidea

44 *aire zubi*

Aire-zubia . Berria - Mundua

Lampedusatik Tripolira doan **aire-zubi** bat ezarri dute etorkinak kanporatzeko. Berria - Mundua

45 *airea girotzeko gailu* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Hain zuzen ere, galdarak, **airea girotzeko gailuak** , eta hozte sistemak egiten dira. ETC-prentsa

Dorre honen tontorrean garabi-beso arrunta dago; beso horrek masa handiak altxa ditzake, hala nola labeak, **airea girotzeko gailuak** edo altzairuzko habeak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hozketak aplikazio asko ditu, ondoren aipatzen direnez gain, badaude beste batzuk ere: etxeetarako hozkailuak, industriarako izozkailuak, kriogenikoak eta **airea girotzeko gailuak** . ETC-entziklopedia

46 *airean gora*

Zuk ere gustura egingo zenuke txorien moduan hegan, haize olatu bat harrapatu eta harekin irristatzeko, eta gero ia itsasoraino jaitsiz, gero berriro ere **airean gora** igotzeko. Joseba Sarrionandia

Hurbildu eta handiagoak eginen dira, eta ur zorrotadak jaurtiko dituzte noizean behin **airean gora** . Joseba Sarrionandia

Gauzarik atseginena, baina, Kupidoek pailazo-txano gorrotagarri haiek erantzi eta **airean gora** botatzen zituztela ikustea izan zen. Julen Gabiria

Terrazetako mahai guztiak zilipurdika hasten ziren hantxe, eta aulkiak gazte eta ez hain gazte zenbaiten esku haserretuetan jarri eta **airean gora** abiatzen ziren, armatuta zeudenen aurka. Alberto Barandiaren

Eta Lisarengandik, altzarietatik, inguratzen zuten gauza gozoetatik halako ongizate bat zetorren **airean gora** , zeinak arnasa apur bat estutzen baitzion era zoragarrian. Karlos Zabala

Arestian **airean gora** altxata bezala, aulkian hondoratzeko zorian sentitu nintzen kolpetik, ehun kilo erantsi balizkidate bezala. Bernardo Atxaga

Halaxe pasatzen baitzituzten arratsalde asko eta asko gure eskolako neskek, kurkuluxak -tabak- **airean gora** botaka, batazaka-biazaka eta antzeko formulak errepi-katzen zituztela. Bernardo Atxaga

Otoitzak **airean gora** egin zuen, basoan usapalak legez. Edorta Jimenez

Poriomania hitza entzun dut, edo entzun uste izan dut, **airean gora** hegaldatzen, niganaino. Karlos Linazasoro

Batzuetan, lehertu eta **airean gora** irtengo ginela iruditzen zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

Eta Barçaren aldeko kantuak eta Espainiako bandera errepublikanoak **airean gora** hasi ziren berehala. Berria - Harian

-Ba, harrapa ezazu, ahal baduzu! -oihu egin zion Malfoyk, eta beirazko bola **airean gora** bota zuen eta bera behera abiatu zen ziztu bizian. Iñaki Mendiguren

47 *airean gorantz*

Jainkozko **airean gorantz** zihoan bide argi zabal batean zeudela zirudien. Juan Garzia

Alegia, pertsona bat ikusia zuela **airean gorantz** hegaldaka zihoala, hegazkina lurretik 8.500 metrora zebilenean. Josetxo Azkona

48 *airean goratu*

Beste aldeko talkek erasotzen baitiete eta euren kabuz ez baitira **airean goratzeko** gauza. Xabier Amuriza

Zuen iturriko ura maite duzuen harritik sortzen denean, ez da **airean goratu** eta erortzen, belardian zehar isurtzen da, gozarazi egiten dizuete, artzainei ere gozarazten dielako. Iñaki Iñurrieta

Peterrek hainbesteko beldurra sentitu zuen, ezkutatu egin zen; baina txoriek esan zioten kometa bat baino ez zela, eta kometa bat zer zen azaldu zioten, eta argitu zioten, seguruenik, kometaren sokak ume baten eskutik egin zuela ihes, **airean goratuz** . Julen Gabiria

49 *airearen kalitate indize* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Herritarrek ezer gutxi egin dezakete oraingoz: itxaron, telefonoko aplikazioan une oro **airearen kalitate indizeari** erreparatu eta laino grisak berriz hiria hartzen duenean maskararen atzean ezkutatu. ETC-prentsa

50 *airearen kutsadura*

Sei urtez, **airearen kutsaduraren** jarraipena egingo du Aurak, egunero-egunero. Berria - Gaiak

Airearen kutsadura maila gainditu zuten 13 udalei diagnosia egin die Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Akitaniako **airearen kutsadura** kontrolatzen duen "Airaq" egiturak 2004 urteko bilanean hauxe dio. Herria

"Begiramenerako neurria da», azaldu zuen Walonia eskualdeko Ingurugiro ministro Benoit Lutgnek, "baina **airearen kutsadura** arriskurik ez dago», gaineratu zuen. Berria - Mundua

51 *airetik eman* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Gero airosago doa konzertua: Argentinatik euskaldun musika egile batek egin opera baten zatia, "Tango des piétons" **airetik emaiten** dutena. ETC-prentsa

52 *airez aire*

Hala eraman zuten uso mezulariek agindua **airez aire** , zeruz zeru, lurralde batetik bestera. Felipe Juaristi

-Hala behar luke - Santxok erantzun - baina ni, gorputz zati, izanik, mantajokoan erabili nindutenean, han zegoen burua hesi gainetik begira, ni **airez aire** eta batere oinazerik sentitzeke bera. Patxi Ezkiaga

Airez aire , alkate izan nintzen Mundaka gazi-gozo maitearen gainera hurbildu nintzen, baina indarrak aurrerago ninderaman. Berria - Kultura

Final-hamaseirenarentzat 9.600 tokiak **airez aire** bete baldin baziren, otsailaren 10ean edo 11n jokatuko den partidarako sarrerek oraindik arrakasta gehiago izanen dute. Berria - Kirola

Gehienak pausuan ziren anderetan, eta Kristelle Iriberri eta Miren Moueskak segitu dute oldar handian, **airez aire** irabazirik aldi huntan ere. Herria

Funtzionario bat mahaian eserita zegoen, oso lantsua: gelan euli asko zebiltzan **airez-aire** , zarataz, firrinda fingabe sarkorra eginaz, eta idazmahaian barreiatutako orri zurietan pausatzen ziren. Matías Múgica

Oiloak ere zoraturik dabiltza, Dupontengandik **airez aire** nola ihes egin asmatu ezinik. Xabier Montoia

Haatik, bazirudien euria ez zela inoiz lurrera iristen, haizeak zeramala **airez aire** zirimolan. Koldo Izagirre

" **Airez aire** kanpora!", ekiten dio neskak. Pablo Sastre

Zertifikata **airez aire** eraman zuen! Itxaro Borda

Haratago, etxe bat altzariz hus-ten ari; oheak, mahaiak eta kadirak **airez aire** zebiltzan leihoetatik beheiti. Aingeru Epaltza

Matematika azterketak bereziki **airez aire** garaitzen zituen. Daniel Landart

Zure lana eginez geroztik, gero, **airez-aire** artzen dire denak, bainan lehenbizi behar duzu lan hori egin. Menane Oxandabaratz

53 *airez eman*

Garbi dauka partida nolakoa izango den: "Bost-sei koadroan jarriko gara eta **airez emango** diogu guztiari. Berria - Kirola

Txalo-zaparrada batez egin zioten abegi han bildutakoek sekula entzun-ikusi gabeko emanaldi hari: absurdoaren bidezko arrazoiketa baten ondorioa, reggae **airez emana** ! Jon Muñoz

54 *airez jo* *(corpusean ez dago; ETCn 25 agerraldi)*

Besoa tenkatu zuen, beregana zetorren pilotaren zain, **airez jotzeko** . ETC-literatura, saiakera

Aresoko aurrelaria sakea luze ateratzen eta pilota **airez jotzen** saiatu zen, partidako erritmoa bizitzeko asmoz. ETC-prentsa

Irujok **airez jo** nahiko du, partida bizitzeko; Barriola, berriz, bote joko luzea egiten saiatuko da. ETC-prentsa

Airez jotzean sumatzen dut. ETC-prentsa

Hamar tanto lortu zituen zuzenean; asko atzean, baina beste asko Pascualek **airez jotzeko** aurreratu zenean. ETC-prentsa

Ez dugu hausteko adinako kolperik, beraz, **airez jo** beharko diogu". ETC-prentsa

Halere, Sorhuet izan zen partidako onena -irudian pilota **airez jotzen** ageri da, Xala alboan duela-. ETC-prentsa

Egunkariaren arabera, **airez jo** daitezkeen jomugak suntsituta, lurreko erasoa izango da beharbada Afganistanen kontrako hurrengo urratsa. ETC-prentsa

NATOk zuzenduriko tropek Helmand probintzian **airez jo** zuten erreboltarien konboi baten kontra, eta zazpi lagun hil zituzten. ETC-prentsa

Tel Avivek Hamasen buru militarraren aurkako "hilketa selektiboa" egin, Gaza **airez jo** eta infanteria prestatu du. ETC-prentsa

Steerrek susmoa bazuen, ordurako, Alemania eta Italia gerra egiteko modu berriak probatzen ari zirela: populazio zibila **airez jo** eta txikitzea, adibidez. ETC-prentsa

55 *airez sartu*

Eta Bonetbeltx ainitz gustatu zaigu harekin, ernea, bipila, **airez sartzen** , sakatzen. Herria

Handik aurrera buruz buruko txapeldunordeak **airez sartzeko** izan zituen aukera guztiak baliatu zituen. Berria - Kirola

Entrenamendu ostean, Eugik bere sentsazioenn "balorazio positiboa» egin zuen, **airez sartzea** kostatzen bazaio ere. Berria - Kirola

56 *airezko buelta* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

27 urteko etxebarritar bat eta 23 urteko bilbotar bat zauritu ziren atzo goizaldean N-637 errepidean, Sondika parean (Bizkaia), haiek zihoazen autoak errepidetik irten, **airezko buelta** eman eta malda jo zuen. ETC-prentsa

57 *destaina-aire* *(orobat **destainaire**)*

Lehorrean gertatzen zenari halako **destaina** aire batez eta erruki puntu batekin begiratzen zion. Edorta Jimenez

58 *itsas aire*

Edertasuna eta lasaitasuna elkarri besotik helduta zeuden logelan, eta zapiz bildutako pitxer eta izarez estalitako aulkietan zehar ez haize zelatariek eta ezta **itsas aire** umelen sudur eztiek ere, igurtzitzen, usnatzen, beren galderak berritzen eta arraberritzen. Anton Garikano

Eta gari helduen buru makurtuak ferekatzen nituen, bularra puzten zidan **itsas airea** edaten nuen, eguzkia aurpegian musuka sentitzen nuen. Josu Zabaleta

59 *jakintsu-aire* *(corpusean **jakintsuaire** soilik)*

Akademiko eta politiko probintziano batzuen diskurtso **jakintsuairea** Estatuaren ezdeusaz. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aebetako aire (6); **ahul aire** (5); **aire ahizpak** (37); **aire ahizpak eta** (4); **aire apur** (4); **aire armadak** (10); **aire armadako** (18); **aire armadaren** (9); **aire asko** (5); **aire bafada** (4); **aire bat** (112); **aire bat ematen** (6); **aire bat ere** (5); **aire batean** (14); **aire batekin** (38); **aire baten** (5); **aire batez** (21); **aire batzu** (6); **aire bereziak** (4); **aire beroa** (8); **aire beroak** (4); **aire berri** (13); **aire berri bat** (5); **aire berria** (6); **aire berriak** (6); **aire bila** (5); **aire ederrak** (4); **aire edo** (4); **aire egokitua** (17); **aire eraso** (11); **aire eraso batean** (7); **aire erasoak** (14); **aire erasoak egin** (5); **aire erasoan** (4); **aire erasoen** (6); **aire ereman** (6); **aire eremua** (4); **aire espazioa** (4); **aire eta** (35); **aire etorri** (6); **aire etorriari** (6); **aire fresko** (8); **aire freskoa** (25); **aire freskoak** (6); **aire freskoaren** (4); **aire garbia** (21); **aire garbiaren** (4); **aire gardenean** (5); **aire garraioaren** (10); **aire gehiago** (4); **aire geruza** (5); **aire girotua** (13); **aire girotuaren** (7); **aire guztia** (9); **aire hemendik** (5); **aire heze** (5); **aire hori** (15); **aire hotz** (7); **aire hotza** (8); **aire hotzak** (6); **aire hura** (8); **aire irabazi** (5); **aire kolpe** (4); **aire konpainia** (8); **aire konpainiak** (12); **aire konpainiako** (4); **aire konpainien** (6); **aire korronte** (5); **aire kutsatua** (4); **aire lehor** (8); **aire librean** (19); **aire libreko** (4); **aire librera** (4); **aire masa** (13); **aire on** (7); **aire ona** (23); **aire pixka** (10); **aire pixka bat** (9); **aire poltsa** (5); **aire sur** (6); **aire sur adour** (4); **aire taldearekin** (4); **aire urdinean** (4); **aire xalbador** (7); **aire zabalean** (32); **aire zabaleko** (11); **aire zabalera** (10); **airez aire** (118); **airez aire ereman** (6); **airez aire irabazi** (5); **airez aire taldearekin** (4); **amaia aire** (4); **armadak aire** (5); **arrotz aire** (5); **arrotz aire bat** (5); **baina aire** (9); **baita aire** (4); **batuko aire** (8); **batuko aire armadak** (4); **berant aire** (7); **bere aire** (17); **beren aire** (10); **beren aire ederrak** (4); **beste aire** (9); **birikak aire** (4); **da aire** (7); **dagoen aire** (7); **datorren aire** (4); **david aire** (9); **den aire** (8); **dira aire** (4); **diren aire** (5); **ditu aire** (4); **du aire** (7); **duen aire** (9); **edo aire** (6); **el aire** (6); **ere aire** (7); **erresuma batuko aire** (8); **espainiako aire** (4); **eta aire** (129); **eta aire zabalean** (4); **eta airez aire** (6); **ez aire** (4); **ezti aire** (4); **frantziako aire** (6); **fresko aire** (5); **gaueko aire** (7); **gero aire** (4); **goizeko aire** (6); **haize eta aire** (4); **halako aire** (21); **halako aire bat** (4); **hango aire** (4); **haren aire** (6); **horrek aire** (4); **kanpoko aire** (9); **kostu txikiko aire** (4); **mixel aire** (11); **mixel aire xalbador** (5); **mottel aire** (4); **munduko aire** (5); **sartzen den aire** (4); **txikiko aire** (4); **uzkur aire** (6); **xole aire** (5); **xuhur aire** (5); **zen aire** (13); **ziren aire** (4); **zuen aire** (17); **zuten aire** (4)

airea ari (4); **airea arnastu** (4); **airea baino** (6); **airea behar** (9); **airea bera** (17); **airea bera ere** (7); **airea besterik** (4); **airea bezain** (10); **airea du** (7); **airea ebakitzen** (4); **airea edo** (6); **airea ere** (17); **airea eta** (32); **airea eta sua** (6); **airea eta ura** (6); **airea ez** (11); **airea ez da** (5); **airea falta** (4); **airea garbi** (4); **airea garbia** (4); **airea hartu** (5); **airea hartzeko** (4); **airea hartzen** (10); **airea kutsatzen** (5); **airea sudurretik** (4); **airea urratu** (5); **airea urratzen** (7); **airea usaindu** (5); **aireak berak** (8); **aireak eraman** (5); **aireak eta** (10); **aireak ez** (9); **arnasgorako aireak** (4); **baina airea** (5); **batek airea** (8); **baten airea** (7); **da airea** (14); **den airea** (5); **den aireak** (8); **du airea** (8); **du aireak** (6); **duen airea** (5); **dugun airea** (6); **ere airea** (4); **eta airea** (73); **eta aireak** (12); **gabeko airea** (4); **hango airea** (5); **hits airea** (6); **ura eta airea** (6); **zen airea** (6); **zuen airea** (16); **zuen aireak** (8); **zuten airea** (5)

airean alde (5); **airean altxatu** (14); **airean altxatu eta** (4); **airean altxatuz** (5); **airean astindu** (12); **airean astindu eta** (4); **airean astinduz** (7); **airean astintzen** (4); **airean atera** (5); **airean bezala** (14); **airean bidali** (5); **airean bota** (10); **airean da** (4); **airean dabilen** (6); **airean dago** (9); **airean dagoela** (4); **airean dagoen** (6); **airean dantzatuz** (4); **airean daude** (6); **airean dilindan** (4); **airean dira** (5); **airean egon** (7); **airean egoten** (4); **airean eragin** (4); **airean eraman** (10); **airean eskegita** (5); **airean eta** (24); **airean galdu** (6); **airean galtzen** (5); **airean geldi** (8); **airean geldia** (5); **airean geldirik** (5); **airean gelditu** (11); **airean gelditzen** (4); **airean geratu** (13); **airean geratu zen** (5); **airean geratzen** (6); **airean gora** (34); **airean gora altxatu** (4); **airean harrapatu** (5); **airean hartu** (7); **airean hartu eta** (4); **airean hedatu** (4); **airean hegaka** (6); **airean hegaka hasi** (4); **airean hegan** (14); **airean hegaz** (4); **airean ibili** (6); **airean ibiltzeko** (5); **airean ibiltzen** (5); **airean igeri** (6); **airean irten** (7); **airean irten zen** (4); **airean jarri** (9); **airean jartzen** (10); **airean jaso** (9); **airean jaso eta** (4); **airean jasorik** (4); **airean jasota** (6); **airean joan** (10); **airean joan zen** (5); **airean leherraraztea** (4); **airean mugituz** (4); **airean nengoen** (5); **airean pasatzen** (4); **airean salto** (4); **airean utzi** (25); **airean utzi zuen** (20); **airean uzten** (9); **airean zabaldu** (7); **airean zabaltzen** (5); **airean zebilen** (12); **airean zebiltzan** (4); **airean zegoen** (17); **airean zehar** (6); **airean zeuden** (5); **airean zintzilik** (20); **airean zintzilika** (7); **airean zituela** (4); **airean zuela** (7); **ari ziren airean** (4); **asko daude airean** (4); **astindu zuen airean** (5); **baina airean** (9); **bat airean** (36); **batez airean** (4); **batzuk airean** (5); **bazterrak airean** (7); **beldurrak airean** (74); **beldurrak airean zegoen** (4); **beldurrez airean** (5); **besoak airean** (7); **bezala airean** (6); **burua airean** (5); **da airean** (13); **dago airean** (8); **daude airean** (5); **dena airean** (6); **dira airean** (6); **ditu airean** (7); **du airean** (13); **dute airean** (6); **edo airean** (4); **egin du airean** (5); **egin zuen airean** (9); **ere airean** (13); **esaldia airean** (7); **eskua airean** (11); **eskuak airean** (7); **eskuarekin airean** (4); **eta airean** (115); **eta airean bota** (5); **eta airean gora** (5); **eta airean leherraraztea** (4); **eta airean utzi** (7); **eta beldurrak airean** (5); **ezpata airean** (6); **gainean airean** (4); **galdera airean** (4); **geratu zen airean** (7); **guztiak airean** (7); **hankak airean** (7); **hartu eta airean** (5); **hegazkina airean** (4); **hitzak airean** (7); **hori airean** (5); **hotsa airean** (4); **ia airean** (6); **jo eta airean** (5); **kea airean** (8); **kea airean bezala** (5); **kirioak airean** (25); **makila airean** (4); **marraztu ditu airean** (4); **modura airean** (4); **nerbioak airean** (8); **nuen airean** (5); **oinak airean** (6); **oraindik airean** (11); **pozak airean** (12); **ukabila airean** (5); **utzi zuen airean** (5); **zabaldu zen airean** (5); **zainak airean** (8); **zebilen airean** (6); **zebiltzan airean** (4); **zegoen airean** (10); **zen airean** (34); **zigorra airean** (7); **zion airean** (7); **ziren airean** (14); **zituen airean** (12); **zituzten airean** (4); **zuela airean** (5); **zuen airean** (52); **zuten airean** (12)

airearekin kontaktuan (5); **airearen hezedura** (5); **airearen hezetasun** (6); **airearen hezetasun erlatiboa** (6); **airearen kalitatea** (10); **airearen kalitateak** (4); **airearen kalitatearen** (4); **airearen kutsadura** (5); **airearen tenperatura** (6); **aireari eta** (4); **aireari ostikoka** (5); **aireko armadako** (7); **aireko bat** (16); **aireko batean** (7); **aireko batek** (4); **aireko bidaia** (7); **aireko eta** (6); **aireko hegaztiek** (8); **aireko hegaztiek habiak** (7); **aireko hori** (5); **bi aireko** (7); **da airearen** (4); **datorren aireari** (4); **eta airearen** (19); **eta aireari** (9); **eta aireko** (29); **eta aireko hegaztiek** (7); **zuloak eta aireko** (4)

---

airealde *iz* eguratsa.

Bere barrenean jaio zen Egiptotik etorrita, **airealde** izugarria eta itsas zelai guztia zeharkatu ondoren, azkenean Pandionen herri osoaren gainean kokatu zen. Xabier Amuriza

---

airean 1 *adlag* azkar.

Airean ihes egiten duen Damak ere egiazko emakume gisa jokatu zuen Don Diego familia gabe utzita. Joseba Zulaika

Alabainan, beltxa ez da ageri gauean, eta zakurra entzuten duelarik hurbiltzen, badaki zer duen egiteko: eta hupala, **airean** hesgailua pasatzen du, bere kideekin! Herria

Zerrenda bakotxak bazituen 15 lagun, Cocagnen lista pasatu da **airean**, batere dudatu gabe. Herria

Eta hola-hola eramaiten gaituzte, blokeko hirugarren estaitik, **airean**, eskaileretarik beheiti, bloketik pasabidera, pasabidetik kurutzebidera... Filipe Bidart

-Pello, **airean** irabazi diagu! -esan zion Kepak ilunabarrean, bozak zenbatu ondoren. Joan Mari Irigoien

Ai, ai, ai, mutila! **airean** emaiteko, hona, zenbait lerro: Piarres Xarriton

Gaztea, berriz, zaplazteko pare bat hartzeko beldurrez, bat-batean eserleku bat libre gelditu zela profitatuz, **airean** joan zen bertan esertzera. Xabier Olarra

Airean doakigu denbora, ezta? Antton Olano

Laster, bizkor, ontzia badoa, historiek ez dute itxoiten; aukerak noiz izan, orduantxe harrapatu behar, **airean**. Fernando Rey

Adinean aurrerago, eta azkarrago joaten zaizkigu urteak, eta hiru urteok ere halaxe joan zaizkit niri: **airean**, ziztu bizian, aitaren batean. Joxerra Garzia

2 *adlag* ernai, urduri.

Astirian saldaren zatitzea -kanpalekua **airean** zen-: edo amerikanoak heldu ziren, edo SS-ak, gauaz garbitu behar gintuztenak. Marzel Etxehandi

Bazterrak **airean** ziren joanden egunean, eguerdi irian, Donibane Lohizunen, treinen geltokian! Herria

Atletak azken probaren aurrean bezalaxe sentitzen zen; edota soldaduak borrokari ekin aurretik bezalaxe: bihotza **airean** baina lehia edo gatazkari ekiteko gogoz, itxaronaldiak gorputzean pilaturiko tentsiotik libre gelditzeko. Migel Angel Mintegi

Noiz nahi bazuen haren desira, haren baitan hiltzeko, haren besarkatzeko, musukatzeko, barkamendu eskatzeko tirria zuen, eta gauak **airean** iragaiten zituen jakinez etxe berean lo egiten zuela. Elena Touyarou

Poll, Doll eta Moll, Flumek eramanak arduraz **airean**, barre handiz aldarrikatu zuten emakume peto-peto bat zela hura, eta lokarriak askatu nahi izan zizkioten antzezaldiaren ondoren. Juan Garzia

3 *adlag* aire zabalean.

Egia erran, gelako xaharrenak ez du arratsa **airean** iragaiteko gogo handirik. Eneko Bidegain

Gaixoak... ez du balio gaua **airean** pasa dezaten. Daniel Landart

Noiz nahi bazuen haren desira, haren baitan hiltzeko, haren besarkatzeko, musukatzeko, barkamendu eskatzeko tirria zuen, eta gauak **airean** iragaiten zituen jakinez etxe berean lo egiten zuela. Elena Touyarou

4 ***airean eraiki***

Eta berriro desegiten zuen **airean eraikitako** Angie, eta berregin... Iñaki Zabaleta

Izan ere, hi aurrera egiteko prest hengoke, baina bera, zer...? Ez ote haiz gazteluak **airean eraikitzen** ari? Joan Mari Irigoien

Baina norbaitek zoritxarrez zer edo zer eraiki behar badu zure gainean, patu erabat gaiztoa izango du, egunen batean konturatu beharko baitu **airean eraiki** duela, ezerezean. Ander Irizar

5 ***airean eseki/eskegi***

Gero, agur hits bat **airean esekiz**, gabardina hartu eta kalera irten da bizkor. Iban Zaldua

Batzuetan, **airean esekirik**; beste batzuetan, eguzki izpi batek geriza gurutzatzen zuenean, edo lorategietan lore bihurturik. Ramon Saizarbitoria

Utz dezagun, gaurkoagatik, **airean eskegita** bera. Xabier Arregi

Estu eta larri zen ehiztari gajoa, eta, bere estuasunarekin, salto egin zuen bide ondoan ikusi zuen leize izugarri batera, eta han, behera zihoala, heldu zion leizearen alde batetik zegoen lertxun baten adarrari, eta geratu zen **airean esekirik**. Anjel Lertxundi

6 *airean galdu*

Nire galdera **airean galdu** zen, aldi berean Aita Arbizuk bi besoetatik heldu eta etzanarazi egin baitzuen agure erkindua, gaixoekin erabili ohi dugun goxotasun aginkoi horrekin "lasai, lasai" esaten ziola. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez eta igaro eta **airean galdu** ondoren usaimena eragiten duen kutsua bezala, handik igortzen baitu irudia oroimenera eta oroitzapenez errepikatzen dugu guk. Imanol Unzurrunzaga

Eta azken unean Maria Sararen ahotsak geldiarazi zuen, ezustean lasai, oraintxe eta hemen gertatzen ari denarekin hain kontraesan handian, non hitzen esanahia **airean galdu** bailitzan izan baitzen. Jon Alonso

7 *airean zintzilik*

Esaldia **airean zintzilik** geratu zen. Pedro Alberdi

Beraz, trintxera gainean zegoela esan zion, eta eztul ikaragarri batek hartu zuela, harrigarria zirudien arren, eta luze iraun zuela **airean zintzilik** bezala, eta gero lurrera erori zela ahoz gora. Ramon Saizarbitoria

Batzuetan, **airean zintzilik** geratzen ziren, Peterrek muturreko bat jo arte aireari. Julen Gabiria

Sumindu egiten du hitzak **airean zintzilik** uzteko Petrusen ohitura horrek. Oskar Arana

8 *deabruak airean*

Ahal duzunean zoaz leku bazterturen batera eta aska itzazu **deabru guztiak airean**. Jasone Osoro

Selimek, baina, **deabruak airean** esan zion: Patxi Zubizarreta

9 *tximistak airean*

Norbaitek ikusi egin zian, Alejandrori kontatu zioan, eta hura **tximistak airean** joan zuan Varelaren etxera. Jon Muñoz

-Gurasoak eta Nati hilik daude hor behean, eta Anastasio **tximistak airean** hartuta joan zen ihesi -argudiatu zuen Amaiak. Aitor Arana

10 *airean bidali*

Bere makila magikoaren mugimendu zehaztugabe batez, mahai luzeak **airean bidali** zituen jangelako bazterretara, pareten kontrara; beste mugimendu batez, ehunka lo-zaku gorri bigunez beteta geratu zen zorua. Iñaki Mendiguren

Nahiz eta gero Don Rikardok sermoi latzak egiten zituen, armiarmak eta denak **airean bidaltzeko** modukoak, tartean latinezko hitz batzuk esanaz. Berria - Kultura

Tartean sartu eta **airean bidali** zituen anaiaren kontrario guztiak. Gotzon Garate

"Ez duzu ikusten lanpeturik nabilela?", esan zion haserrea disimulatu gabe, eta **airean bidali** zuen neska gajoa, atea haren muturrean itxita. Patxi Iturritegi

Ondoren burua makurtu eta erasorako prestatu zen, Belasko eta beste gazte bat harrapatu eta **airean bidali** zituelarik. Joanes Urkixo

11 *airean eduki*

Apairua ona da eta harreman horiek segitzen dute bururatu arte gazteriak fandagoekin barnea **airean daukala**. Herria

12 *airean egon*

Ohi ez bezala, otoitz egiteko deiaren azken oihartzuna oraindik **airean dagoelarik**, hiriaren otoitzaren xuxurla entzuten hasten da. Jon Alonso

Airean zegoen Sinbaden ihesa traizioa izan ote zen. Edorta Jimenez

Niri ez baina **airean zegoen** zer bati hitz egiten ziola ematen zuen, heriotzaren itzala sumatuz bezala, Jainkoarekin edo bere kontzientziako mamu zaharrekin bakezkoak egiteko presaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Puntu garrantzitsua haatik **airean dagoena** momentuan. Herria

Bastoiarekin akuilatzen ninduen eta oihuka esaten zidan nire **airean egon** behar nuela eta berea ez kutsatzeko. Pello Lizarralde

Ni arin sentitzen naiz une horietan, pisugabea, **airean banengo** bezala. Pako Aristi

"Ligatik kanpo ere badago etorkizuna», dio, Ligan dena **airean dagoela** ohartaraziz. Berria - Kirola

Homosexualitatearen gaiari buruzko film batek irabaziko du azkenean Oscar sari nagusia? Hori da **airean dagoen** galdera azken asteotan. Berria - Kultura

Martin Ugalde parke honen giroan, **airean dago**, eta foro honen gidari ere bera nahi genuke. Berria - Harian

Airean zegoela heldu zen Yurrera. Pablo Sastre

Joseba Azpeitia Urola Kosta Bizirik plataformako ordezkariaren esanetan, ordea, zortzi hilabete pasatu dira, eta Zestoako Udalak hartutako konpromisoak **airean daude** oraindik. Berria - Harian

Airean nengoela, metalezko saihets batek zaflako egin zidan gerrialdean. Aingeru Epaltza

Aukera **airean egote** hutsa asko eta sobera zen ordea giro bat sortzeko orduan. Harkaitz Cano

Bilkura-denboran **airean egon** nintzen, leihotik begira eta ez nuen han aipatuez ezer gogoratzen. Itxaro Borda

13 *airean joan*

Metal-hots handia entzun zen Ginnyren pertza **airean joan** zenean; Weasley jaunak berak bota zion Malfoy jaunari, jo eta atzeraka liburu-apalen kontra bidali zuelarik. Iñaki Mendiguren

Airean joan ninduan. Anton Garikano

Poliziak zuloa ikus ez zezan, berriro ohola jarri zuten; kanpotik berebiziko ostiko bat eman eta **airean joan** zen, ordea, berriro. Josu Zabaleta

Norbaitek ikusi egin zian, Alejandrori kontatu zioan, eta hura tximistak **airean joan** zuan Varelaren etxera. Jon Muñoz

Gaztea, berriz, zaplazteko pare bat hartzeko beldurrez, bat-batean eserleku bat libre gelditu zela profitatuz, **airean joan** zen bertan esertzera. Xabier Olarra

Alabaina, galdera motak hiru direla entzuten dudanean, "baden, zer den, nolakoa den", hitz hauen mintzo islak gordetzen ditut, eta badakit soinu eginez **airean joanak** direla eta jadanik ez direla. Imanol Unzurrunzaga

14 *airean joanarazi*

Gero, mandoz eraman ondoan, metatzen zituzten gune batzuetan, kablez **airean joanarazteko** segeriara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

15 *beldurrak airean eduki*

Ez zegon hirekin hitz egiteko modurik eta, **beldurrak airean gauzkan** eta. Antton Olano

Beldurrak airean nindukan beraren bulegoan eta berarekin buruz buru egongo nintzen uneak. Joxan Elosegi

16 *beldurrak/ikarak airean*

Marta, **beldurrak airean**, diru guztia emango diela esaten hasten da, baina minik ez egiteko, faborez. Xabier Mendiguren Elizegi

Auzo guztia **beldurrak airean** zegoen ea noiz egingo ote zuen ez egitekoren bat, ez ohi zituen modukorik, izugarrikeria handiren bat baizik. Juan Kruz Igerabide

Eta denbora horretan guztian, Marcusi bere jabetzak erakusten zizkion artean, frogatu nahian bazuela Marcusen emazte izateko moduko jatorria, bakezko epailea baitzen mutilaren aita, bada, denbora horretan guztian, ikarak **airean zegoen** Mary, aita noiz sartuko zain. Koro Navarro

Haren harridurak goia jo baitzuen, gelditu egin zen, eta, zertan ari zen jakin gabe, **beldurrak airean** jaisteari ekin zion. Patxi Zubizarreta

Beldurrak airean zihoan Esther, ondotik - ia ukituz - igarotzen zitzaizkien ibilgailu motordun haietakoren batek eurak noiz harrapatuko. Xabier Montoia

"Marinel eta soldadu zaildu haiek ikarak **airean zeuden**, nahiz Martzeloren gudu guztietan borrokatuak ziren. Jon Muñoz

Mutila harresiaren inguruan ibili zen, tentu eta arreta handiz, noiz zutik noiz haztamuka, estropezu egiteko **beldurrak airean**. Felipe Juaristi

Asaldatu egin ziren haiek eta **beldurrak airean** honela esan zuten. Jose Antonio Mujika

Agustina! - esan zuen Agustinak sendo eta larri aldi berean; sendo, ongi entzun ziezaioten eta larri, **beldurrak airean** zegoelako etxeko korridorean bakarrik. Aitor Arana

Beldurrak airean hartzen ditu, arrazoi osoz hartu ere, Mediterraneo itsasoaren mendebal bazterreko kosta inguruak. Pello Zabala

Baina hori biharamuneko egunkarietako argazkietan ikusiko zuen, iskanbila hasi zenean **beldurrak airean** alde egin zuen-eta handik. Jokin Muñoz

Umetan, maiz saiatu nintzen gas-ganberara laguntzen, preso eta **beldurrak airean** irudikatzen nuela, seme-alabei egin zietenaz herioan kezkaturik, itorik, hats bahi, izu-

laborrian, ezerezturik. Joxan Elosegi

17 *beldurrez airean*

Gizonek beldurra dute, be-e-ele-de-u-erre-erre-a, kakaztuak daude goitik behera, **beldurrez airean**. Karlos Zabala

Auzoren batek nire oihuak entzun eta gure arazoa ezagutuko ote zuen zeuden biak, **beldurrez airean**. Anjel Lertxundi

Bien bitartean, Ostiako gotzain beneragarria **beldurrez airean** zegoen, eta bihotz-bihotzetik Jaunari otoitz egiten zion gizon dohatsuaren xalotasuna mespretxa ez zezaten. Askoren artean

Bada, lehoi bat zen: oihaneko errege izugarriak **beldurrez airean** dauzka etsai guztiak; hala eta guztiz ere, sekulako ikara die gurdi hots kirrinkariei eta oilarraren kantuari, eta, aurpegia estaliz gero, kemen asko galtzen du. Karlos Linazasoro

18 *beldurrez airean eduki*

Bada, lehoi bat zen: oihaneko errege izugarriak beldurrez **airean dauzka** etsai guztiak; hala eta guztiz ere, sekulako ikara die gurdi hots kirrinkariei eta oilarraren kantuari, eta, aurpegia estaliz gero, kemen asko galtzen du. Karlos Linazasoro

19 *pozak airean*

Burutazioa izan baitzuen emazteari kontatu egingo ziola zer-nola burura eman zuen azkenean Detroit-eko kontua, eta haren karietara zeinen **pozak airean** zirudien J.G. delakoak. Mirentxu Larrañaga

Pozak airean zebilen hirian zegoelako, jostalari eta durunditsu ibili ere, txantxetarako irrika bizian. Mirentxu Larrañaga

Beste egun batean, baina, **pozak airean** etorri zen. Joan Mari Irigoien

Pozak airean zegoen hura, Errealak irabazi zuelako. Joan Mari Irigoien

Pozak airean izan beharko dut, geratu naizelako, ezta ba? Mirentxu Larrañaga

-Neuk ere ezingo nuen hobeto esan - esan zion Lupin maisuak, eta Hermione **pozak airean** jarri zen -. Iñaki Mendiguren

20 *zainak/kirioak/nerbioak airean*

Entzuten duan musika alu horrek dik errua, **zainak airean** jartzen zizkidak, txilio eta orro horiekin. Alberto Ladron Arana

Egoera umorez hartzen ahalegintzen banintzen ere, **zainak airean** nengoen. Alberto Ladron Arana

Egia esan, **nerbioak airean** nengoen: ondo ari zitzaizkidan ateratzen gauzak, ondoegi. Xabier Mendiguren Elizegi

Nerbioak airean dago. Lopez de Arana

Mutila, dardaran, **kirioak airean** zegoen. Patxi Zubizarreta

Nahi ala ez, beharriak xut nituela eta **zainak airean**, ari ziren ari denak, bakoitza bere aldian. Piarres Aintziart

Tarte luze batez egon ziren aiduru, **zainak airean**, eta kaiaren izkina batetik ikusi zuten barkurantz zetorren gizon eta emazte talde bat, eskuak loturik, guarda nazionalez inguraturik. Elena Touyarou

Herriko agintariak **zainak airean** geratu ziren eta hiria salbatzeko beste biderik ikusi ez eta, Antonio Díaz de Herediari deitzea erabaki zuten. Felipe Juaristi

Nerbioak airean nago. Patxi Iturritegi

Ez nintzen neure buruaren jabe, sarrakio zorrotz batek urraturik neukan barrena, aztoratuta nengoen eta **zainak airean** nituela, gizon haren mende ikusten bainuen neure burua. Anjel Lertxundi

Kirioak airean zegoen. Lopez de Arana

Zainak airean bainituen, puska bat behar izan nuen hi errana zidala ohartzeko, lehenagoko denboretan bezala. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

airean alde egin (3); **airean altxatu zuen** (3); **airean altxatuz** (5); **airean altxatzen** (3); **airean astindu zuen** (3); **airean astinduz** (7); **airean astintzen** (4); **airean atera** (5); **airean azaldu** (3); **airean barrena** (3); **airean buelta** (3); **airean da** (4); **airean dabil** (3); **airean dabilen** (6); **airean dabiltzan** (3); **airean dago** (9); **airean dagoela** (4); **airean dagoen** (6); **airean dantzatuz** (4); **airean daude** (6); **airean daudela** (3); **airean dauden** (3); **airean dilindan** (4); **airean dira** (5); **airean doan** (3); **airean emandako** (3); **airean eragin** (4); **airean eraman behar** (3); **airean eramango** (3); **airean ere** (3); **airean esekirik** (3); **airean eskegita** (5); **airean eutsiz** (3); **airean ez** (3); **airean flotatzen** (3); **airean galdu** (6); **airean galtzen** (5); **airean geldi** (8); **airean geldia** (5); **airean geldirik** (5); **airean gelditu** (11); **airean gelditzen** (4); **airean geratu zen** (5); **airean geratu ziren** (3); **airean geratzen zen** (3); **airean gora altxatu** (4); **airean gora joan** (3); **airean gurutzatu** (3); **airean harrapatu** (5); **airean harrapatzeko** (3); **airean hartzen** (3); **airean hedatu** (4); **airean hegaka hasi** (4); **airean hegaldaka** (3); **airean hegan** (14); **airean hegaz** (4); **airean ibili** (6); **airean ibiltzeko** (5); **airean ibiltzen** (5); **airean igeri** (6); **airean ikusi** (3); **airean ikusten** (3); **airean irten zen** (4); **airean itzuli** (3); **airean jarri** (9); **airean jasorik** (4); **airean jasota** (6); **airean joan zen** (5); **airean joaten** (3); **airean mugituz** (4); **airean nago** (3); **airean nengoen** (5); **airean pasatzen** (4); **airean salto** (4); **airean sentitu** (3); **airean utzi zuen** (20); **airean zabaldu** (7); **airean zabaltzen** (5); **airean zebilen** (12); **airean zebiltzan** (4); **airean zehar** (6); **airean zenbait** (3); **airean zeuden** (5); **airean zihoala** (3); **airean zintzilik** (20); **airean zintzilika** (7); **airean zituela** (4); **airean zuela** (7)

ari ziren airean (4); **asko daude airean** (4); **astindu zuen airean** (5); **baina airean** (9); **baloia airean** (3); **banderak airean** (3); **batean airean** (3); **batez airean** (4); **batzu airean** (3); **batzuk airean** (5); **bazterrak airean** (7); **behin airean** (3); **beldurrak airean egon** (3); **beldurrak airean egoten** (3); **beldurrak airean zegoen** (4); **beldurrez airean** (5); **beltza airean** (3); **besoak airean** (7); **bezala airean** (6); **burua airean** (5); **da airean** (13); **dago airean** (8); **dena airean** (6); **denak airean** (3); **dira airean** (6); **dugun airean** (3); **dute airean** (6); **edo airean** (4); **egin du airean** (5); **egin zuen airean** (9); **egiten zituen airean** (3); **ere airean gora** (3); **esaldia airean** (7); **eskua airean** (11); **eskuak airean** (7); **eskuarekin airean** (4); **ez airean** (3); **ezpata airean** (6); **gabe airean** (3); **gainean airean** (4); **galdera airean** (4); **galdera bat airean** (3); **galderak airean** (3); **geratu zen airean** (7); **gora airean** (3); **guziak airean** (3); **guztia airean** (3); **guztiak airean** (7); **haiek airean** (3); **hanka bat airean** (3); **hankak airean** (7); **hartu eta airean** (5); **hegazkina airean** (4); **heldu eta airean** (3); **hitzak airean** (7); **hor airean** (3); **hori airean** (5); **horiek airean** (3); **hotsa airean** (4); **hura airean** (3); **ia ia airean** (3); **ikarak airean** (3); **jarri eta airean** (3); **jo eta airean** (5); **kakoa airean** (3); **kea airean bezala** (5); **kirioak airean jartzen** (3); **lehertu eta airean** (3); **luma airean** (3); **maisua airean** (3); **makila airean** (4); **marraztu ditu airean** (4); **marraztu zuen airean** (3); **modura airean** (4); **nerbioak airean** (8); **nuen airean** (5); **oinak airean** (6); **oraindik airean** (11); **osoa airean** (3); **peter airean** (3); **pozak airean** (12); **txoriak airean** (3); **ukabila airean** (5); **usaina zegoen airean** (3); **utzi zuen airean** (5); **zabaldu zen airean** (5); **zainak airean** (8); **zalantzak airean** (3); **zango bat airean** (3); **zebilen airean** (6); **zebiltzan airean** (4); **zigorra airean** (7); **zion airean** (7); **zituzten airean** (4); **zuela airean** (5); **zuten airean** (12)

---

aireatu, airera(tu), aireratzen da/du *ad* aireberritu, aireztatu.

Jauregian zaindari bat bizi da, Isidora, zeina Bixkiturritik etortzen den, neguan ez baina udaberri aldera bai, lorategia txukundu eta gelak **aireatzera**, oheak jantzi eta hautsak kentzera, udan kanpotiarrek etxea eroso aurki dezaten. Pako Aristi

· -Tontoa **aireatzera**... -esan du Mikelen lagunetako batek, irribarretsu. Jokin Muñoz

---

aireberritu, aireberri(tu) aireberritze du *ad* airea aldatu, aireztatu.

Kolpean kendu zizkigun lausoak begien aurretik, azalari itsatsitako txaplata kolpetik kentzen dizun erizainak bezala; zauria bistan uzten dizu, garbitzeko eta **aireberritzeko**. Juan Kruz Igerabide

Banekien Idoia jakinaren gainean jarriz gero zuzen-zuzen sartuko zela eremu hartan, burusiak altxatuko zituela, izarak atera, lastairari buelta eman, eta **aireberritzen** ipiniko zuela. Juan Kruz Igerabide

Tennesseeren arabera, antzerkiak garaian garaiko gizarteetan aurrerapen artistiko ikaragarriak lortu ditu, giza jokabidearen eta esperientziaren armairu, mandio eta sotoak zabaltzen, argiztatzen eta **aireberritzen** dituelako. Berria - Kultura

---

aireberritze *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi) iz* airea aldatzea, aireztatzea.

Baina janaria ilunpean prestatu beharrak, garbiketak egun-argiz ezin eginak eta, batik bat, etxea behar bezala ezin **aireberritzeak**, gero eta gehiago urduritzen ditu. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, bero handiagoa izateak eta etxea gutxiago **aireberritzeak** etxean bertan hauts akaro gehiago egotea dakar. ETC-prentsa

Hostoen dentsitatea arintzea da helburua, landarea **aireberritzea** da asmoa. ETC-prentsa

Aireberritze edo eguraste faltak birusen eta bakterioen kutsapena errazten du, bulego eraikinetan, batez ere. ETC-prentsa

Horregatik, produktu toxikoei alternatibak jartzen hasi aurretik, aholku argigarria eman du Silvestrek: etxea egunero 15 eta 20 minutuz **aireberritzea**. ETC-prentsa

Pentsatu nahi dut, gehienen aldetik bederen, ez dela izango Jesus izeneko bat Betleemen jaio zelako, eta urte berriarekin batera bizitza **aireberritzearen** aukera desiratu nahi didatela. ETC-prentsa

Horretarako, urtero Udaltopekin konta dezakegu! Herrietako euskara zerbitzuen topaketak **aireberritze** bat dira iparrrrrraldeko teknikariontzat. ETC-prentsa

Izugarrizko kolpea hartu nuen, eta gogoan dut arnasketarekin eta **aireberritzearekin** hasi nintzela berehala. ETC-prentsa

Maiz, orduko **aireberritzeak** terminoa erabiltzen da aireztapen-estandarrak zehazteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

airebide *iz* airea igarotzen den bidea.

Airebide asko izateak belaki-egitura ematen die birikei, eta azalera ikaragarria gas trukerako. Irene Aldasoro

Anhidrido karbonikoa, hots, orain arte aipagai izan dugun karbonoaren forma **airebidezkoa**: bizitzaren lehengaia, hazten den guztiaren eskolta iraunkorra eta haragi ororen azken patua den gas hori ez da airearen osagairik nagusienetako bat, baizik eta hondar irrigarri bat, "zikinkeria" bat, inork ezertan ez duen argoia baino hogeita hamar aldiz urriagoa. Juan Garzia

---

airegune *iz* airea dagoen gunea.

Trumoi handi batek bat-batean astintzen duen lurrak bere gainean dagoen guztia astintzen du berak ere; hori ezingo luke inola ere egin, munduko **aireguneekin** eta zeruarekin bat eginik ez balego: denboren hasieratik elkarren artean sustrai komunez atxikirik eta batasunean loturik baitagoz. Xabier Amuriza

---

airehartze *iz* airea hartzea.

Kontutan hartuz Hazparne aldeko herrialdean aurkitzen den ingurumen erdalduna eta ondorioz euskararen heina beti ahulduz doala, azpimarratzeko da Ezkia ikastolako erakasle eta langileak (jantegiko eta kanpoko zaintzale, eskolako laguntzaile) elebidunak direla eta horrela eskolan egiten den lana naturalki segitzen dela kanpoko **airehartzetan**, bazkaitean ala etzanaldia egitean. Herria

---

aireko 1 *iz ipar* hegazkina.

Baziren bi **aireko** mota, batzuk italianoak, besteak alemanak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oraino aipatzen ahal genituzke Dornier eta Messerschmitt **aireko** motak, denak herio hedatzaile izigarriak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aireko talde bakoitzak bere hiri partea suntsitzen zuen. Marzel Etxehandi

2 *aireko armada*

Ordu batzuk lehenago, Hamaseko bi militante zihoazen auto bat tirokatu zuen Israelgo **Aireko Armadako** hegazkin batek. Berria - Mundua

AEBetako marineekin batera, Silicon Valleyko teknologien segurtasuna bermatzen duen ukabil ikusezina da lurreko, itsasoko eta **aireko armada**. Txema Ramirez de la Piscina

Talde horretako pilotuak Espainiako **Aireko Armadako** ofizialak direla azpimarratu zuen, eta erakustaldietan ez daudenean C-101 ehiza hegazkinetako pilotu izango direnak trebatzea dela haien egitekoa, "erasorako abioiak gudetan erabil ditzaten». Berria - Euskal Herria

Kapitain graduarekin **Aireko armadako** eskola teknikoko irakasle izendatu zuten. Josu Zabaleta

3 *aireko bidaia*

Pasa den larunbatean Flash Airlines Egiptoko hegazkin garraio konpainiako Boeing 737 bat Itsaso Gorrira erori eta 148 bidaiariak hil zirenetik, **aireko bidaia** agentzien segurtasunaren inguruko ika-mika piztu da. Berria - Mundua

Celestine Perissinotto Suitzako Zibilen Hegaldietarako Bulego Federaleko eledunak herenegun esan zuenez, Flash Airlines **aireko bidaia** konpainian arazo teknikoak zeudela, eta ez finantza arlokoak. Berria - Mundua

Hori ez da izan, baina, Erresuma Batuko **aireko bidaia** enpresak AEBetarantz doan hegaldia ezeztatzen duen lehen aldia. Berria - Mundua

4 *aireko espazio*

Urte hartan, berrogeita bostean, alemanek ez zuten jadanik menpean gure hiriaren gaineko **aireko espazioa**. Fernando Rey

5 *aireko garraio*

Iraganean hori ez zen beti egingarria izaten, sektore honetako adar handi gehienak estatuaren monopolio zirelako: elektrizitatea, ura, telekomunikazioak, **aireko garraioak**, bankuak, aseguruak. Koro Navarro

6 *aireko gerra*

Aireko gerraren dentsitatea? Hauts izpiak katedral batean! Hauts izpi geu ere, beste hamarka edo ehunka hauts izpi ari gara guregana erakartzen, beharbada. Josu Zabaleta

7 *aireko indar*

Aireko indarrak hurbildu ezinean, tankeen sabelpean dinamita, berrogeita hamabost egun eta berrogeita hamabost gau iraun zuen borrokak. Rafa Egiguren

Gatazka suspertzen ari ziren **aireko indar** haiek uxatzeko, Frantziskok Silvestre anaia, usoa bezain xalo zen gizona, bidali zuen mezulari gisa bere aurretik. Askoren artean

8 *aireko korridore*

Etxe eta jauregiak ziruditen, batzuk besteen gainean jarriak, metalezko babilonia bat, arintasun hindukoa, hutsaren gainean egindako terraza esekiek, **aireko korridoreek**, zubi hegalariek zeharkatzen zutena. Karlos Zabala

9 *aireko linea* *(corpusean ez dago; ETCn **108** agerraldi)*

Aireko lineen jabego eta kontrol arauak zein ere segurtasunekoak harmonizatzea bilatuko dute, besteak beste. ETC-prentsa

Aireko lineak jarri zituzten arte arrastaka eramaten zuten materiala alde batetik bestera. ETC-prentsa

Atzo, Lan eta Tam **aireko lineek** Santiagotik Argentinako aireportuetara zituzten hegaldi guztiak eten zituzten. ETC-prentsa

Lurpeko eroanbideak, hoditeriak eta **aireko lineak** eremu publikoetan barna igarotzen dira. ETC-prentsa

Errepidearen galtzada mugatzen duen kanpoko lerrotik eraikinen lerrora debekaturik daude eraikin berri oro, bai eta zerbitzuko **aireko lineak**, telekomunikazio zutoin edo dorreak paratzea ere, gurutzatzeak salbu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Era berean, lautadak, mendikateak, haranak, kostaldea eta abar zeharkatzen dituzten eta hiri handiak inguratzen dituzten **aireko linea** handiek ere eragina dute ingurumenean, ikusizko inpaktua eragiten dute behintzat, geroz eta gehiago kontuan hartzen dena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horiek eraikinetik gertu izan daitezkeen transformadore, **aireko linea** elektriko edo trenbideetan izan dezakete jatorria. ETC-zientzia, zuzenbidea

Airelinea, **aireko linea**, aire konpainia edo hegazkin-konpainia karga edo bidaiariak, batzutan baita animaliak ere, hegazkin bidez garraiatzen dituen aireko bidaien enpresa bat da. ETC-entziklopedia

Garcia Egotxeaga lehendakariordeak erraten zuen nazio bat sortzeko bi gauza baitezpadakoak direla: **aireko linea** propioa ukaitea, eta orkestra nazionala. ETC-literatura, saiakera

10 *aireko linea elektriko* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Aireko linea elektrikoak energia elektrikoa garraiatzeko edo/eta banatzeko erabilitako egiturak dira. ETC-entziklopedia

Horiek eraikinetik gertu izan daitezkeen transformadore, **aireko linea elektriko** edo trenbideetan izan dezakete jatorria. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 *aireko nabigazio*

Gipuzkoako Foru Aldundiak errefusatu egin ditu Aena Espainiako Aireportuak eta **Aireko Nabigazio** erakundeak Hondarribiko aireporturako dituzten asmo berriak. Berria - Euskal Herria

12 *aireko posta* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Maletan sartzea ahaztutako gauza batzuk **aireko postaz** bidaltzea nahi zuen. ETC-literatura, saiakera

Mende erdi batez egon dira han, **Aireko Posta** Zerbitzuaren urrutiko geltoki bateko hangarrean ahantzitako posta-zakuen antzera. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **airekoen kontrako** (4)

---

airekoño *iz ipar adkor* hegazkintxoa.

Frantses gobernuak espresuki harat igorria **airekoño** bat gure gizona hartan sartuko zutela. Herria

---

airelinea *iz* airetiko garraio konpainia.

British Arways, Air France-KLM eta Lufthansa dira, besteak beste, ikerketapean dauden **airelineak**, eurek aitortu dutenez. Berria - Ekonomia

Airelinea handiek kartela osatu duten ikertzen ari dira Europa eta AEBak. Berria - Ekonomia

---

airenautika ik **aeronautika**.

---

aireño *iz ipar adkor* itxura.

Hori ene ikustekoa zela erran zidan, arrunt bitxia kausitu nuen **aireño** batekin. Janbattitt Dirassar

Erraiten banu bizian ero **aireño** bat behar dela halere... poxiño bat, artetan bederen. Menane Oxandabaratz

Azkenean, espantu **aireño** batekin bezala bota zidan ihardespena: [...]. Janbattitt Dirassar

"Eta: lana galdu al du?" galdetu zuen Txemiñek: ikazkin zahar **aireño** bat, ile-beltza, basakatu begiak. Pablo Sastre

Eta, nik dakita, halako trufa **aireño** batekin! ez banizu bederen aipatu andre hori... Janbattitt Dirassar

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aireño bat** (17); **aireño batekin** (8); **halako trufa aireño** (3); **trufa aireño** (3); **trufa aireño batekin** (3)

---

aireontzi *iz ipar* hegalda daitekeen ibilgailua.

Laster, erran zien "Cathay Pacific" konpainiaren **aireontzi** bateko bi leku aurkitu zituela. Ramuntxo Etxeberri

Aireontzia hegaldatu zelarik bere aitaren eskua hartu zuen. Ramuntxo Etxeberri

Aireontzitik jaitsi bezain laster, Mikelek bere amaren lasaitzeko, deitzeko behar larrian sendi zuen bere burua. Ramuntxo Etxeberri

Beharrietan ezarriak zituen zirazko tapak kendu zituen eta **aireontziaren** dardaren zurrumurru handiak entzunez, denetaz oroitu zen. Ramuntxo Etxeberri

Halako grazia zoriontsu batekin **aireontzian** ibiltzen ari zen 'hôtesse' langile xarmant baten telefono zenbakia lehenbailehen lortu behar zuela. Ramuntxo Etxeberri

---

aireplano *(ETCn **259** agerraldi; orobat **aeroplano** ETCn **63** agerraldi) iz* hegazkina, airekoa. ik **aeroplano**.

'Zer egingo zenukete **aireplano** bat pasatuko balitz eta lehergailuak jaurtiko balitu?' galdetu zuen maistrak. Joseba Sarrionandia

Goiz batean, gutxienik ustean, **aireplanoak** agertu ziren zeru oskarbian eta dinbili danbala hasi ziren kanpaiak, dinbili danbala, eta **aireplanoak** herri gainean jirabiraka, burdinazko enara erraldoiak, ilunak, astiro, ozen, eta kanpai hotsak egundokoak baino larriagoak. Joseba Sarrionandia

'Aireplano alemanak izan dira!' esaten zen. Joseba Sarrionandia

Arineketan joan ginen **aireplano** suntsiturantz eta aleman bat topatu genuen, larruzko gorroarekin eta betaurreko beltzekin bolantearen gainean. Joseba Sarrionandia

---

aireportu *iz* abiazio zibileko hegazkinak aireratu eta lurreratzeko instalazioen multzoa.

British Airwaysen Londreserako BA 485 hegaldia ordubiak eta berrogeita bost minututan abiatu da Sondikako **aireportutik**. Harkaitz Cano

Sondikako **aireportuan** aerotaxia alokatu eta arratsaldeko zazpiak pasata Espainiako Kongresuan zen Juan Etxebarria Gangoiti UCDko diputatu bizkaitarra. Berria - Euskal Herria

Hegazkina bere orduan aireratu zen Madrilgo **aireportutik**, 06: 45ean. Berria - Euskal Herria

Bi hegaldi egin behar izan ditut Torinotik Triestera heltzeko, eta bien arteko hegazkin-aldaketa azkar bat Erromako Fiumicino **aireportuan** ordu erdi bateko tarte doian. Anjel Lertxundi

Iruñeko Noain **aireportuan** ere bidaiari kopuruak gora egin du. Berria - Euskal Herria

Ordu gutxira Frankfurteko **aireportuan** gaude, inora ez doazela diruditen bidaiariz betetako leku moderno eta hits batean. Pako Aristi

Goizeko seiak hamar gutxi ziren hegazkinak Miarritzeko **aireportuan** lur hartu zuenean. Harkaitz Cano

Kilometro batzuk hegoalderago zegoen **aireportua**, eta handik aireratutako hegazkinen bat ikusten zuen inoiz zeruan diz-diz. Imanol Zurutuza

Mugimendu gutxiko **aireportua** da Caselle, Torino bezalako hiri bati legokiokeena baino askoz ere txikiagoa. Anjel Lertxundi

Aireportuan aparkatu, hangarra zabaldu, eta harro seinalatzen du bere hegazkina: motor bakarreko Cessna Cardinal zuri-gorri txikitxo bat. Xabier Olarra

Hegazkina heldu zen ordurako iritsi nintzen ni ere **aireportura**. Jon Muñoz

Aireportura lagundu eta ama-semeak hegazkinean sartzen ikusi nituenean, ezerezak irentsi zidan barrena. Hasier Etxeberria

Heathroweko **aireportura** iristeko hamabosten bat milia falta zirenean bat-batean auto-ilara erraldoi batekin egin zuten topo autobidea zabaltzeko egiten ari ziren obra batzuk zirela medio. Joxemari Iturralde

Autobusez egin dut **aireporturainoko** bidaia. Anjel Lertxundi

Aireportuko langile eta enpleatu gehienak falta ziren haatik, laneko tenoren gainetik makur baitira **aireportua** kudeatzen duen erakunde bereziarekin, hots beren nagusiarekin. Herria

PPk **aireportuko** pista 196 metro luzatu nahi zuen. Berria - Euskal Herria

Hemen ere badira pobreak, jende koloreduna, iluna, zu baino ilunagoak behintzat, **aireportuko** pasaporte kontrolean gelditu dutena bezalakoak. Lourdes Oñederra

Aireportuko hall nagusian zeuden biak eserita. Joxemari Iturralde

Haurtzaroko oroitzapenak, **aireportu** inguruko mendiak bezala, urruti gelditzen hasi zaizkizu eta beldurra ematen dizun zulo modukoa ari zaizu irekitzen barrenean. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aena espainiako aireportuak (6); **aireportu bat** (5); **aireportu batean** (8); **aireportu batetik** (4); **aireportu berria** (5); **aireportu eta** (9); **aireportu hori** (5); **aireportu militarrera** (3); **aireportu modernoa** (3); **aireportu ondoan** (4); **aireportua da** (3); **aireportua eta** (5); **aireportua ez** (4); **aireportua handitzearen** (3); **aireportua handitzeko** (10); **aireportua handitzeko asmorik** (3); **aireportua itxita** (3); **aireportua kudeatzen** (3); **aireportua kudeatzen duen** (3); **aireportuak ere** (3); **aireportuak eta** (8); **aireportuak eta airezko** (5); **aireportuak ez** (3); **aireportuan atxilotu** (8); **aireportuan atxilotu zuten** (4); **aireportuan bertan** (4); **aireportuan dago** (3); **aireportuan ere** (4); **aireportuan eta** (8); **aireportuan ez** (6); **aireportuan izan** (4); **aireportuaren aurkako** (3); **aireportuaren inguruan** (4); **aireportuaren inguruko** (3); **aireportuaren pista** (6); **aireportuaren pista handitzearen** (3); **aireportuen arteko** (4); **aireportuen kudeaketa** (5); **aireportuen kudeaketa generalitatearen** (3); **aireportuetan eta** (8); **aireportuko aparkalekuan** (6); **aireportuko aparkalekuko** (5); **aireportuko arduradunek** (5); **aireportuko beste** (4); **aireportuko gune** (5); **aireportuko hall** (3); **aireportuko pista** (6); **aireportuko segurtasun** (3); **aireportura bidean** (3); **aireportura eraman** (4); **aireportura eramango** (3); **aireportura heldu** (4); **aireportura iristean** (4); **aireportura iritsi** (7); **aireportura iritsi zen** (3); **aireportura joan** (12); **aireportura joan beharra** (3); **aireportura joan nintzen** (3); **aireportura joateko** (7); **aireportura zihoan** (3); **aireporturainoko bidaia** (3); **aireporturako bidean** (6); **aireportutik airatu** (3); **aireportutik atera** (5); **aireportutik gertu** (3); **aireportutik hurbil** (6); **baa aireportu** (3); **bagdadeko aireportuaren** (3); **bartzelonako aireportuan** (3); **bilboko aireportua** (3); **bilboko aireportuan** (3); **bilboko aireportuko** (3); **bruselako aireportuan** (6); **charleroiko aireportua** (3); **dagoen aireportu** (3); **du aireportu** (3); **eko aireportuan** (3); **espainiako aireportuak** (7); **espainiako aireportuak eta** (7); **eta aireportu** (3); **eta aireportua** (4); **eta aireportuak** (8); **eta aireportuan** (3); **eta aireportuaren** (4); **eta aireportuen** (3); **eta aireportuetan** (3); **eta aireportuko** (7); **eta aireportura** (4); **fiumicino aireportuan** (3); **forondako aireportua** (3); **forondako aireportuan** (3); **gasteizko aireportua** (3); **heathrow aireportuan** (3); **hiriburuko aireportuan** (6); **hondarribiko aireportua** (23); **hondarribiko aireportua handitzeko** (5); **hondarribiko aireportuak** (4); **hondarribiko aireportuan** (11); **hondarribiko aireportuaren** (10); **hondarribiko aireportuaren pista** (3); **hondarribiko aireportuko** (4); **hondarribiko aireportuko pista** (3); **jfk aireportuan** (3); **kairoko aireportuan** (3); **ko aireportuan** (4); **loiuko aireportua** (3); **loiuko aireportuan** (3); **loiuko aireportuko** (8); **loiuko aireportuko aparkalekuan** (4); **loiuko aireportuko aparkalekuko** (4); **loiuko aireportura** (4); **loiuko aireportutik** (4); **madrilgo aireportuan** (3); **miarritzeko aireportua** (3); **miarritzeko aireportuak** (3); **miarritzeko aireportuan** (25); **miarritzeko aireportuko** (10); **miarritzeko aireportura** (9); **miarritzeko aireportutik** (7); **nazioarteko aireportuan** (3); **noaingo aireportua** (3); **noaingo aireportuan** (10); **prateko aireportuaren** (3); **roissyko aireportuan** (5); **sondikako aireportuan** (3)

---

aireportutxo *iz adkor* aireportu xumea.

Bide bihurrian autoz bidaldi biratsu eta zakar samarra eginik, urduri nago hegaldirako, Branfordeko **aireportutxora** iritsi garenean. Xabier Olarra

---

aireratu, airera(tu), aireratzen **1** da *ad* lurretik edo uretatik goratu, airera joan.

Lertxun hauskara bat **aireratu** zen ibaitik eta bidelagun izan genuen puska batean. Mirentxu Larrañaga

Hipogrifoa **aireratu** egin zen. Iñaki Mendiguren

8'30etan **aireratu** zen, sei ordurako erregaiarekin. Josu Zabaleta

Haserre gorriak hartuta, gerrarako oihua egin eta zutoihala **aireratu** zuen. Agustin Otsoa

Hegoak astintzeko indarra bildu, hala ere, eta **aireratu** egin zen. Jon Muñoz

Erleak, iraintzat hartu bide zuen hura, **aireratu** eta hegan joan baitzen. Mirentxu Larrañaga

Soldaduek begiak ireki zituzten, betzuloak niniz betez, eta gero, lehen akordeak **aireratu** ahala, itxi egin zituzten berriro. Felipe Juaristi

Aireratu eta gora eta behera hegaldatu da alboko habeartean; harik eta, azkenean, zabalik duen atea topatu eta joan egin den arte. Mirentxu Larrañaga

Murmurio gozoa **aireratzen** segitu zuen emazteak, haurra altzoan kulunkatzen zuela: [...]. Itxaro Borda

Aireportutik **aireratutako** hegazkinean doan emakumezko bat irudikatu du alargunak, eta alaba Londresen duela. Imanol Zurutuza

Belarrira iritsi zitzaiena esku soinu batek **aireraturiko** musika izan zen, habanera bat. Felipe Juaristi

Itsasontzi espainiarra ondo-ondotik iragan zitzaion, ur-aparrak **aireratuz**, branka landu dotorea erakutsiz. Felipe Juaristi

2 du *ad* barreiatu.

Hemen agertzen da kazetaritza horia, Beizamako jendea nola bizi den eta baserritarren arteko harremanak edo amodio kontuak ere **aireratuko** dituena. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aireratu ahal (4); **aireratu ahal izan** (3); **aireratu baino** (4); **aireratu egin** (8); **aireratu egin zen** (3); **aireratu eta** (17); **aireratu nahi** (3); **aireratu zen** (13); **aireratu ziren** (4); **aireratu zituen** (7); **aireratu zituzten** (6); **aireratu zuen** (12); **aireratu zuten** (5); **aireratuko dituzte** (3); **aireratzeko kredituak lor** (3); **aireratzen den** (4); **aireratzen dira** (4); **aireratzen zen** (3); **aireratzen zituzten** (4); **aireratzen zuten** (5); **aireratzen zuten gas** (4); **bat aireratu** (5); **batzuk aireratu** (3); **ere aireratu** (3); **eta aireratu** (3); **ezina aireratu** (5); **gabeziak aireratu** (5); **gehiago aireratzeko kredituak** (3); **hegazkina aireratu** (3); **urtean aireratzen zuten** (4)

---

aireratze *iz* lurretik edo uretatik altxatzea, airera joatea.

Lurreratzeak beldur handia ematen dit, ez **aireratzeak** bezainbat, baina handia nolanahi ere. Ramon Saizarbitoria

Jauregian zaindari bat bizi da, Isidora, zeina Bixkiturritik etortzen den, neguan ez baina udaberri aldera bai, lorategia txukundu eta gelak **aireatzera**, oheak jantzi eta hautsak kentzera, udan kanpotiarrek etxea eroso aurki dezaten, Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aireratze eta lurreratze (3)

---

airesorgailu *iz* airea sortzen duen tresna; airea higiarazten duen generadorea.

Airesorgailuen eraikuntza indartu du Gamesa taldeak aurten. Berria - Ekonomia

Airesorgailuak eta parkeak muntatzen eta mantentzen dituen enpresaren atalari dagokionez, fakturazioa 172 milioi eurotik 220 milioi eurora igo da, %28 gehiago. Berria - Ekonomia

2004. urtea bukatzerako Txinan **airesorgailu** berriak jartzeko kontratua lortu du Gamesak. Berria - Ekonomia

GAMESAk (- %2,4) 25 **airesorgailuko** parkea eraikiko du Galesko iparraldean. Berria - Ekonomia

---

airestatu ik **aireztatu**.

---

airetaratu, airetara(tu), airetaratzen du *ad* aireratu.

Argazki batzuk aterako dizkiot kartelari eta irratikoek pozik **airetaratuko** dute "amodio galduaren bila" istorioa. Iñaki Zabaleta

---

airetikako *izlag* airekoa. ik **airetiko**.

Bost bote sartu ditu bakarrik eta tronpatu den **airetikako** pilota batzuetan hala nola azkena. Herria

airetiko *izlag/iz* airekoa. ik **airetikako**.

Hilabete haietan alemanek Belgrado suntsitzen zuten, greziar erresistentzia apur-apur egiten, Kreta **airetiko** erasoz hartzen: huraxe zen Egia zinezkoa, huraxe Errealitatea. Juan Garzia

Zorionez, garai hartan ez zegoen artean **airetiko** loturarik edo errepide erregularrik eta posta-zakuak ahal zuenean egiten zuen aurrera zeren, ontzia goizean porturatu eta eguerdi aldera euria hasi baitzen. Bego Montorio

Hirian bolo-bolo zebilen zurrumurruaren albistea ilustratzen zuen argazkiak: **airetiko** tzar bikaina hiritik hurbil gelditzekoa zela egun batzuk barru. Anjel Lertxundi

Stepheni ia arreta guztia eraikinek hartzen zioten txiki-txikitandik -konplexutasun eta tamaina handiko eraikinak, aukeran-, eta orobat **airetiko** ikuspegiek eta perspektiba ez-ohikoek. Xabier Olarra

"Orain gertatzen ari dena, **airetiko** zein artilleriaz eta tankez eginiko bonbardaketak izugarrizko sarraskia dira", adierazi zion Al Jazeera telebistari Berria - Mundua

---

airetsu *izond* dotorea eta liraina.

Bere janzki errauskolore luze harekin oso itxura **airetsua** erakusten bazuen ere, ahotsa hauskorra zuen, une batetik bestera kordea berbertan gal zezakeen batena. Anjel Lertxundi

---

airez **1** *adlag* hegan; hegazkinen bitartez.

-Hala ere faxistek **airez** gupida barik bonbardatzen segitu zuten. Edorta Jimenez

Jugoslavia **airez** bonbardatu zuten herrialdeak, ez ziren inoiz gerran egon. Iñigo Aranbarri

Horrek bertan behera uzten zituen erabat kuartel jenerala **airez** erasotzeko aukera oro. Harkaitz Cano

Zaldiak bertatik igo zitezkeen, eta baita gurdiak astiro arrastaka eraman ere; baina etsairik bertaratzea ezinezkoa zen, **airez** izan ezean behintzat. Agustin Otsoa

2 *adlag* pilotan, airetik.

Xalak tanto eder batzu egin ditu **airez** eta moztera baina hutsak ere. Herria

Burutik buru aintzinean, besoz nausi, **airez** ere bai eta sei sake orotarat, desbardin aldi batzu izan baditu ere noiztenka. Herria

---

airezko *izlag/iz* hegan egiten duena; hegazkinei dagokiena.

Foru Aldundiak Gipuzkoak eta Hondarribiak aireportu azpiegitura modernoa, segurua eta lehiakorra behar dituela gaineratu zuen, **airezko** garraioan dauden beharrei erantzungo dien azpiegitura, alegia. Berria - Euskal Herria

Borja Jauregi Hondarribiko alkatea AENA Espainiako Aireportuak eta **Airezko** Nabigazioko arduradunekin biltzen saiatu zen. Berria - Euskal Herria

Airezko alfonbra baten gainean balebil bezala higitzen zen, mugimenduak aske, gorputza lirain. Jon Muñoz

---

aireztapen *iz* aireztatzea.

Publizitatea **aireztapena** bezain garrantzitsua iruditzen zait. Lopez de Arana

Aireztapen mekanikoaren laguntza behar du, istripuan arnastutako kearengatik. Berria - Ekonomia

Atearen aurrez aurreko horman, ate ttikiago bat zegoen, zurezkoa, zaborraren nahiz lurraren hatsa zerion trastelekura ematen zuena eta, **aireztapen** bakar, patio bat barnera zuen leiho bat zeukana. Patxi Zubizarreta

Erretzeko toki berezi hauek ondo seinaleztatuta egon beharko dute, gainontzeko eremuetatik bereizirik egon beharko dute, eta berariazko **aireztapena** izan beharko dute. Berria - Harian

Aireztapen eta argiztapen sistemak. Berria - Kultura

Alcalako espetxean hilik agertu zen **aireztapen** hodietara lotutako lepoko zapi batekin. Berria - Euskal Herria

Aireztapen-patioa -xuxurlatu zion gizon batek Thatcherri belarrira. Lopez de Arana

Hura bezalako itsasontzi baten makina-aretoak lantegi ongi antolatu baten neurria dauka, batez ere diesel-motor handientzako egokitua, gehi argindar, ur-berokuntza eta **aireztapen**-instalazioak. Joxe Austin Arrieta

---

aireztatu, airezta, aireztatzen du *ad* haizeztatu, haizeberritu, egurastu.

Aireztatu ongi gelak; ariketa fisikoa egiten gozatu. Berria - Euskal Herria

Oheak ondo **aireztatuta** dauden egiaztatzera. Julen Gabiria

Block 45 hura etxe eder bat zen, ontsa **aireztatua**, zimentazkoa, lau barne handirekin, 250 gizon barne bakoitz. Marzel Etxehandi

Hau izango da gure gela, leiho handiak gustatzen zaizkit, horrela ondo **aireztatuko** da. Jon Maia

Gaizki **aireztatutako** logelen usaina nabaria zen. Lopez de Arana

Jauregi handi-ederra eraikiko dut neuretzat, sala **aireztatuz** hornitua; leihoak irekiko dizkiot, hormak zedro-zurez estaliko eta margo gorriz apainduko. Elizen arteko biblia

Elektrizitate aparatuak: Ez erabili ez berogailua eta ezta **aireztatzeko** aparaturik ere. Berria - Euskal Herria

Aireztatzeko zuloak libre utzi. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ondo aireztatuta** (3)

---

aireztatze *iz* haizeberritzea, egurastea. ik **haizeztatu**.

Aireztatze artifizialeko arnasketa sistema kendu berri diote eta bi egunen buruan unitatetik aterako dute. Berria - Ekonomia

Bidea zabaldu eta inbutu itxura hartzen zuen leku hartan, erauntsia haiengana zuzen-zuzen jaurtiz, lurrun ontzietan haize alde jartzen diren **aireztatze** ahoetan egingo zuen bezala. Karlos Zabala

Aireztatze denbora labur bakoitzak Joanesi bizia luzatzeko irudipena emaiten zion. Eneko Bidegain

Nolanahi ere, suhiltzaileak bertaratu zirenerako ia itzalia zegoen eta kea atera zedin **aireztatze** lanak baino ez zituzten egin. Berria - Euskal Herria

---

airis *(ETCn **9** agerraldi; corpusean **ailis** soilik, ETCn **13** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **airis** agertzen da)* **1** *iz* legamiarik gabeko opila edo ogia.

Okindegian hasiak ziren Pazkoko ogi **ailisak** prestatzen, baina ura sartu zen zakuetan eta irina alferrik galdu zen. Koro Navarro

airos 1 *izond* alaia, bizia, dotorea. ik **airoso**.

Zure ibilera **airos** hura, zure eskuen kadentzia emea, burua makurtzeko eraren malenkonia. Xabier Mendiguren Elizegi

Dena irri, ele eta oihu **airos**. Piarres Aintziart

Ziburun ere Ederlan-Besta xarmanki iragan da, giro **airos** batean eta aroa arrunt alde. Herria

Maite genuen neska geureganatzearren imintzio burlatiak egiten genituenetik geratu zaigun sorbalda mugimendu **airos** eta dantzaria. Harkaitz Cano

Lorontziaren alboetan Sèvresko portzelanazko lau maisulan daude, lau estatuatxo **airos** eta dotore, lau puntu kardinalak irudikatzen dituztenak: Iparra, Hegoa, Sortaldea eta Sartaldea. Xabier Olarra

Conche, honen ondoan, leku **airos** eta biziz betea da. Aurelia Arkotxa

Gustura idatziko nuke poema eder, indartsu, epel, argitsu, **airos** bat bizitzaren ohoretan. Berria - Kultura

Zuhaitz **airosa** da sahatsa; arin hazten da, ez agudo bakarrik, baita arinkeriarik gabeko airosidade lirain eta garbozkoan ere. Pello Zabala

Ohanesko paraje haietara doan bidaiariak estilo kolonialeko ermita bikain bat ikus dezake, dorre **airos** biki bi dituena, Zuhaitz **airosa** da sahatsa; arin hazten da, ez agudo bakarrik, baita arinkeriarik gabeko airosidade lirain eta garbozkoan ere. Joan Mari Irigoien

Izan ere, nik uste nuen ezen jakintasunak -zinezko eta minezkoak- gorputz sendo eta gotor bat zuela eta, aldi berean, **airosa**, Burgosko katedralaren antzekoa. Patxi Ezkiaga

Donibane Lohizunen, zinez Jondonane besta **airosak** izan dira. Herria

Oro har, ihauteri **airosak** izan dira Donibane Lohizun eta Ziburuko horiek. Herria

Meza hori koralak ederki lagunduz eguberriko kantu eder eta **airosak** jende guziak kartsuki xaramelatu ditu. Herria

Denek batean emaiten genituen, noiztenka agertzen zirela ere beste alaitzaile batzuk, hala nola Orbaizetako Urtzi trikititxalariak, beren nota **airosekin**. ez ginduke nahi arras ahantziak izan gaiten, Euskal Herriarentzat pena litzateke bere baratzeko lorerik **airosena** eta pollitena ahantzirik xoko batean utziko balu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bistan delako ezen zaldia astoa baino abere ederragoa eta **airosagoa** dela. mugimendu arin eta ezin **airosagoan**. Joan Mari Irigoien

Bistan delako ezen zaldia astoa baino abere ederragoa eta **airosagoa** dela. Joan Mari Irigoien

Somonte eta Anuzita neskatila lirainak izan ziren frontoiaren zutoihala **airos** eroan zuten andereño graziosak. Edorta Jimenez

Aski toki **airosa** da eta jatetxe hautak badira. Janbattitt Dirassar

Oraindik ere musika **airos** hura zerabilkion kasko-zokoan. Itxaro Borda

Parropiako koralak xaramelatu ditu Pazkoko kantika **airos** ederrak. Herria

Lorontziaren alboetan Sèvresko portzelanazko lau maisulan daude, lau estatuatxo **airos** eta dotore, lau puntu kardinalak irudikatzen dituztenak. Xabier Olarra

Ene zaintzale troparen buruzagiak, xefak, biziki **airosa** iduri du, irriño bat ezpainetan, baina ez irri gaixtoa. Filipe Bidart

2 (adizlagun gisa)

Malgu eta **airos** ibiltzeko zuen antzea eta maneia, otzarak eroateko haren taxua. Edorta Jimenez

Aingura igo, haizeari zapi bat eman, eta hantxe abiatu ginen, astiro, **airos** eta uraren gainean harro. Edorta Jimenez

Harrezkero inork ez zuen betaurrekoen beharrik, sub-a, kalma zurian zegoen itsasoan **airos** mugituz, bizkor-bizkor urruntzen zihoala ikusteko. Edorta Jimenez

Neure burua madarikatu nuen, nire lagunek hain **airos** erabiltzen zuten telefono mugikor horietariko baten jabe ez izateagatik. Aingeru Epaltza

Gai filosofikoekin gertatu ohi denez, desafioa handia zen, baina **airos** atera zen bilbotarra. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **airos baino airosago** (4); **airos baino airosago** (4); **airos bat** (12); **airos bat** (12); **airos batean** (4); **airos batean** (4); **airos batzu** (3); **airos batzu** (3); **airos eta** (13); **airos eta** (13); **airos eta goxo** (3); **airos eta goxo** (3); **airos hura** (4); **airos hura** (4); **besta airos** (5); **besta airos** (5); **bezain airos** (4); **bezain airos** (4); **eta airos** (6); **eta airos** (6); **giro airos** (3); **giro airos** (3); **giro airos batean** (3); **giro airos batean** (3); **ibilaldi airos** (3); **ibilaldi airos** (3); **musika airos** (3); **musika airos** (3)

---

airosidade *iz* airostasuna.

Zuhaitz airosa da sahatsa; arin hazten da, ez agudo bakarrik, baita arinkeriarik gabeko **airosidade** lirain eta garbozkoan ere. Pello Zabala

---

airoski *adlag batez ere ipar* airostasunez.

Karrikaratu zen, **airoski** kantuz. Itxaro Borda

Ikusi nola ateratzen dudan umea Catharinaren sabeletik, zeinen **airoski** jasotzen dudan, zeinen garbi. Koldo Izagirre

Horra zergatik **airoski** ari izan giren kontrabandan, anai batzueri zerbitzu eginez eta ber denboran sos poxi bat irabaziz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gero lurpeko aparkalekurantz abiatu zen, **airoski** ibiliz, aldakak kulunkatzen. Migel Angel Mintegi

Eskularru zuriak jantzirik, **airoski** egiten zuten diosala, militarren erara. Xabier Olarra

Arrunki zeloak bezala ezagutzen den periodo deuseztatzaile hau **airoski** gainditu nuen ordea, eta gaur egun arrangura barik imajina dezaket Susana zure besoetan. Eider Rodriguez

Adinarengatik ez zen lotsa eta baratzean aritzeko bazuen oraino trenpe, aitzurra **airoski** bazerabilan, nahiz eta gerruntzeak erematismek minberatuak izan. Michel Oronoz

Bat-batean, makurtu egin zen **airoski**, beraren islari gur eginez bezala, eta edontzia altxatu zuen haren alderantz. Mirentxu Larrañaga

Behin bedere, otzan eta meneko izateari **airoski** utziz, zeharo gatibu ez zela erakutsi zuen zakurñoak. Jose Angel Irigaray

Haurrek bakarrik ikas dezaketelako behar bezain **airoski**. Iñaki Segurola

Airoski jotzen du, xarmanki, bai eta tristeki ere, malkoak isurarazteraino zenbaitetan. Xabier Montoia

Houellebecqek gai eta kezka ugari darabiltza bere liburuetan, **airoski** eta abilki, baina bat eta bakarra da nagusia, besteak itzalean uzten dituena: sexua. haurrek bakarrik ikas dezaketelako behar bezain **airoski** (hitza haur baten haragi bilakatzen ari da gizaldiak joan eta gizaldiak etorri, eta hitz biluzgorriak haur bihurtzen gaitu esanaldi oro). Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **airoski egin** (3); **airoski eta** (3); **airoski gelan** (5); **airoski polikiroldegian** (26); **airoski polikiroldegirat** (10); **airoski salan** (5); **airoski taldearekin** (10); **airoski taldearekin ortzegun** (3); **aratsaldean airoski** (3); **aratsean airoski** (3); **aratsean airoski polikiroldegian** (3); **da airoski** (7); **da airoski polikiroldegian** (3); **dantzak airoski** (6); **dantzak airoski taldearekin** (6); **denek airoski** (3); **dira airoski** (5); **du airoski** (4); **dute airoski** (4); **eta airoski** (13); **euskal dantzak airoski** (5); **irisarriko airoski** (5); **irisarriko airoski polikiroldegian** (3)

---

airoso 1 *izond* alaia, bizia, dotorea. ik **airos**.

Hanka puntetan jarri, eta ttikun-ttakun, erdi kantuan hasi da neska eta pauso **airoso** batzuk ematen kamerinoaren erdian. Anjel Lertxundi

Pare bat minutuan Enrikeren historia guztia kontatua zion emakume **airoso** hark. Iñaki Iñurrieta

Ilehori oparoa, klasikoa, **airosoa**, ametsezko bularrak. bakoitzak bere etxetik mairu jantzi **airosoa** bihurtuko zen maindire bat eta behin-behineko durbantea bihurtuko zen toaila bat ekartzeko. Migel Angel Mintegi

Eraikinaren hegal hori eta tenpluaren inguruan jarritako kolomak, kolomartean geratzen den tarte handiari esker, kanpotik itxura **airosoa** izan dezaten daude asmatuta.

Santiago Iruretagoiena

Hots, gure frantsesa ez denez oso **airosoa** , interpreteren bat edo beste beharko dugula etsi dugu. Jokin Urain

Ezkerrera barra bat, lau neska-mutil **airoso** eta izarditurekin. Hasier Etxeberria

Mundu guztia iruditzen zitzaidan **airoso** eta zoriontsu, denak ni ezik. Matías Múgica

Orein bat ematen zuen; edo ibilera **airosoko** hegazti exotiko bat. Anjel Lertxundi

2 (adizlagun gisa)

Hatzez hatz hasi da pasatzen, irrien eta barreen artean, **airoso** hasieran, zurezko euskarria aski luzea den bitartean, neketsuago gero, atzamarrentzako tokia urritu ahalean. **Airosoa** ederra bainoago, geldiezintasun urduri baten jabe zen, beti zeukan zerbait egiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Airoso ibiliz bete zuen gonbidapena, Iturbide atzetik, detektibeari bizkarra emanda-. kontatzen dit nola, gazte lirain eta hanka-arina artean, **airoso** joaten zen herri batetik bestera. Migel Angel Mintegi

Hollywoodi buruz irakurtzen den guztian beti kontatzen da neska zerbitzari bat proba batetik **airoso** atera eta aktoresa ospetsu bihurtzen dela. Fernando Rey

Berriro diot, baina badaezpada ere ez lizueke kalte egingo kinkatik **airoso** irteteko bideren bat asmatzeak. Migel Angel Mintegi

Agureak erreka jo **zuen** airoso, // marrazki lana hobe uztea akaso. Xabier Olarra

60 metro **airoso** hartzen dituzten hoditzarrok, egunean bat zut uzten zizuten. Pello Zabala

Gure inguru hauetan zozoak dira negua iritsi orduko, ale bihi guztiak **airoso** asko jaten dituztenak. Pello Zabala

Lehenengo maila **airoso** samar egin izana zor diot. Jesus Mari Mendizabal

Deus gertatu ez balitz bezain **airoso** jaitsi zituen, Nora atzetik zuela. Anjel Lertxundi

Dantzatzeari lotu zitzaion, trebe, ezin **airosoago** , sugeenaren gisako sigi-sagarekin. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **airoso asko** (4); **airoso eta** (6); **bezain airoso** (3)

---

airostasun *iz* airosa denaren nolakotsuna.

Soweto-ko 32 gaztek, neska ta mutiko, zer trebezia, zalutasuna eta **airostasuna** erakutsi duten beren dantza eta kantuetan, tam-tam erne batzuek lagundurik! Herria

Ederki joan da iragan larunbatean DONIBANE LOHITZUNEN eta ZIBURUN muntatu Atun-besta, bi herri horietako hogeita-zonbait elkarte partzuer eta denak omore onean! Afaltiarrak milaka eta gaitzeko **airostasuna** ! Herria

Etxean berean, bagenuen lore, bai ezkaratzeko mahaiaren erdian, bai sukaldeko tximiniaren gainean, eta ahal zuelarik, logeletan ezartzen zituen tulipa, edo margarita, edo jasmin batzuk, beti, **airostasun** eta usain ona ematen zutenak. Daniel Landart

Hori guzia goxoki ospatu dugu, lehenik Angeluko Herriko Etxeak eskaini hurrupaldiarekin, gero Angeluko portuan, Charly Labat hazpandarraren "Les Terrasses du Port" ostatuan egin dugun bazkari hautarekin, beti bezala omore onean eta kantuen **airostasunean** . Herria

Gabriel harro eta zoriontsu sentitu zen orduan: zoriontsu, Gretta berea zuelako; harro, haren **airostasunaz** eta emazte onaren jarreraz. Irene Aldasoro

Aratsaldeko 6etarik goiti izanen da **airostasun** handia, trikititxa eta txalaparta besteak beste. Herria

Urdiñarben Chistera ostatuan iragan dira ezteiak **airostasun** haundienean. Herria

Jokalariak egundoko atletak dira eta erakusten duten **airostasuna** eta jagitasuna ikusgarriak dira. Edorta Jimenez

Gure Maruxaren **airostasuna** ! Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **airostasun handia** (6); **da airostasun** (3)

---

airostu, airos(tu), airosten da/du *ad ipar* alaitu, bizitu.

Arratsalde apalean, karrikak **airosten** ziren ipar haizearen edo itsas haizearen menturan, baina gauaz egunaz bezalako sapa zen, eta ez zen soleitze handirik. Elena Touyarou

Berriz ere irriño batek **airosten** zion aurpegia baina berriz ere haatik negarra ez zuen urrun. Janbattitt Dirassar

Bi partida eder beraz eta biziki besta giro alegera,Beñat Elizondoere han bere musikari lagun zonbaitekin, bazterrak kartsuki **airosten** zituztela! Herria

Badu jadanik hogoi urte Beñat Elizondo eta hunen lagunek bazterrak **airosten** dituztela Euskal-Herri guzian, Musika eta dantza bazterren **airosteko** . Herria

Zarpai-Banda eta Kaskarot-Banda taldeak ere han ziren bazterren aintzina **airosteko** . Herria

Erakusketa bat da, jadanik asko hiritan izana, eta hamar bat joko erakusketa horren beztitzeko eta **airosteko** . Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aintzina airosteko** (7); **airosteko hor** (3); **airostu dituzte** (4); **airostuko ditu** (4); **airostuko dituzte** (4); **airostuko dute** (8); **bazterrak airosten** (4); **bazterrak airostuko** (4); **bazterrak airostuz** (4); **bazterren aintzina airosteko** (5); **bazterren airosteko** (23); **klikak airosturik** (3)

---

aisa ik **aise**.

---

aisatu, aisa(tu), aisatzen du *ad* erraztu.

Hasieran, oharkabez, guhaurek **aisatzen** genion egitekoa. Aingeru Epaltza

Josuk lan aferak zirela-eta egiten zituen kanporaldiek **aisatu** zizkigun gauzak. Aingeru Epaltza

Zeren eta azkenean, gure haurrer ez da aise erraitea gure hautetsien imobilismoak **aisatü** düala holako egintza bat, berehala hogeitabost urte düan ikastola baten kontre. Herria

Hirian egiazko erdigüne baten eraikitzea, horrek beitü alkarrekilako bizitzea **aisatüko** . Herria

---

aise *(ETCn **12.995** agerraldi; orobat **aisa** g.er.)* **1** *adlag* erraz, erosotasunez. ik **aiseki**.

Biziki **aise** egin dut bidaia... Menane Oxandabaratz

Ez zuen galtzeko deus, irabazteko asko baino, ez baitzitzaizkion une eder haiek **aise** ahaztuko. Anjel Lertxundi

Honela begiratuz gero, agian **aise** ulertuko du edonork zein erraz bihurtzen diren "lagunak" "etsai". Joseba Zulaika

Gorenekoak zigortu bazuen ere, oraindik ere **aise** egiten zuen irribarre, eta zulotxoak ateratzen zitzaizkion masaileta n. Koro Navarro

Keinu bat ikusten dugu eta esaten diogu geure buruari, **aise** biziko nintzateke keinu horren barruan, argi zerrenda bat badu, bisturi batek lanpara baten azpian egiten duenaren antzekoa. Harkaitz Cano

Doi bat zalantzan egonik - baina, hain segur, ontsa kontent gauzak hain **aise** zihoazelako - hiru alemanek baietz. Marzel Etxehandi

Hutsak ere egiten dituk, jakina, ortografiari lotuak batzuk, joskerari beste batzuk... baina hori **aise** ikas dezakek, nahi baduk. Joan Mari Irigoien

Handik **aise** emanen zieagu egurra. Aingeru Epaltza

Hargatik, **aise** erabiltzen nuen umorearen ezten maiz korrosiboa, anbulatorioko beste medikukideen aurrean, esate baterako, sarkasmoaren mugetaraino. Joan Mari Irigoien

Bera baino urte zenbait zaharragoa zen Monduteguy, gizon ttipitoa, **aise** loditzen diren horietarikoa, eta bere gantza-guneen gordetzera entseatzen zen, uda edo negu zango sagarretarainoko palto luzea jantziz. Elena Touyarou

Ezagutzarik eza **aise** konpontzen du bertsolariak. Andoni Egaña

Hirugarren saiakeran antzeman diot Mireiari, **aise** antzeman ere. Patxi Zubizarreta

-Hauek ere ez dira **aise** ari - nik esan-. Txillardegi

Gero hari ziztakariarekin metro baten garaierako hesiak eraikiz, aski zabalak **aise** ez pasatzeko gainetik, kalez kale, etxez etxe, bidez bide. Pello Salaburu

Eskularru lodi zurrunez jantzita ditudan eskuok, lurrean hain baldarrak ohi direnok, **aise** erabiltzen dute bolantea. Josu Zabaleta

Badakit oso jenio txarra dudala, baina **aise** ahazten ditut haserrealdiak; minutu bat pasa eta dena ahaztua izaten dut. Fernando Rey

Ez zen **aise** ulertzen Napoleonen zein pauso gaizto ikasi ote zuen Manuelatxok. Koro Navarro

Aise imajina dezake zer pasatu zaion burutik berria jakin duenean. Jokin Muñoz

Bi auzo herri ez baitira **aise** bereizten ahal, izan dadin muga edo ez, Arnegiko erreka horretan, lehenago, zubi andana bazen; orain aldiz batzuk moztuak dira. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baina zein handia den!, hemen denak **aise** sartuko gara. Jon Maia

Liburu batzuk **aise** eta erraz irakurtzen dira, beste batzuk nekez. Bernardo Atxaga

2 (erkaketetan)

Uste duzuen baino **aise** zabalagoa baita eta sekulan pentsa ez dezakezuen baino miresgarriagoa. Aurelia Arkotxa

Bakartasuneko zelda bat bezala da, baina **aise** zikinago. Filipe Bidart

Legeak baino **aise** barkaberagoa izaten zen. Matías Múgica

Barkatuko didazu, bide batez, "Euskal Herri" izena erabiltzen badut hemen, eta ez "Euskadi", azken hitz honek **aise** zama politiko handiagoa baitu niretako besteak baino. Pello Salaburu

Hitz dorpea eta pisua bainan **aise** dorpeago eta pisuago delarik oraino hitz horrek estaltzen ahal duena! Herria

Azkenean, herriak beretu du behar zen lekua bainan auzitegiaren eskutik, jabeak berak nahiko zuen baino **aise** merkeago. Herria

Bainan **aise** luzeagoa eta dorpeagoa izan ditakeena beste ainitzen gostuko... Herria

Eta oraino anitzez berantago, bera baino **aise** makurrago elemeniaka zirela, sabela bete hagin, bihotza bete askatasun egarri. Jose Angel Irigaray

3 *aise asko*

Eta ez zegoen alferrik egonean harako adar-kopa hura; han zebilen jira-biran maiz asko (hutsik nahiz betea) putzu-zirrikaren urontzia bezala; **aise asko** hustu zen, han ageri ziren bi zahagietatik bata. Patxi Ezkiaga

Hi baino handiagoak ere eramaten ditiztek **aise asko**. Bernardo Atxaga

Are gehiago, elkarrizketen zati handiak errezitatzen ditu **aise asko**, pertsonaia bakoitzaren hitzak intonazio perfektuz ebakiz. Xabier Olarra

Baina **aise asko** jo liteke hortik aurrera ere. Juan Garzia

4 *aise eta aise*

Joanden larunbatean bazen jadanik mugimendu bainan igandean oraino **aise eta aise** gehiago, kasik ezin sinetsia! Herria

Urrunago behatuz haatik, ingurumenaren eremua **aise eta aise** zabalagoa ere ditake haatik. Herria

Hameka oren treinean, bosten partez, **aise eta aise** luzeegi dela, bestenaz ere gisa hortako aroarekin! . Herria

Orai, **aise eta aise** ur zikin gutiago ixurtzen da itsasorat. Herria

Beste edozoin urtez baino **aise eta aise** gehiago! Herria

5 ***aise gehiago*** askoz gehiago.

Greba egin dutenak baziren aise **gehiago** ondoko bi egunetan. Herria

Lanbroak gerizatu zituen ibilbide zati nagusienean, erasoaldiaz geroztik **aise gehiago** ziren mugako guarden arretari ihes eginez. Elena Touyarou

Zernahi jende ukaiten dugu, beste egunetan baino **aise gehiago**. Janbattitt Dirassar

· Uste dut jendearen errespetua balu bakoitzak, nolazbait tolerantzia **aise gehiago** litakela. Menane Oxandabaratz

Emendatze horren parte handiena heldu da hiltze baino aise sortze **gehiago** izaitetik. Herria

6 ***aise hobe***

-Egia duzu, Josepe, holako aro hitsarekin kanpoan ahal bezain guti ibilirik aise **hobe**! Janbattitt Dirassar

Gisa batez **aise hobe** funtsean ez baitzinen enekin... Janbattitt Dirassar

Baina, halere, lehen bai lehen egitea **aise hobe**. Elena Touyarou

Esperientzia batzuk baino hobe, **aise hobe,** heriotzea. Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aise ahanzten (9); **aise ahazten** (5); **aise antzematen** (8); **aise ari** (43); **aise ari zen** (16); **aise arizan** (7); **aise arizan da** (5); **aise asko** (10); **aise atera** (6); **aise aurkitzen** (5); **aise barkatzen** (8); **aise berantago** (6); **aise bete** (8); **aise beteko** (5); **aise da** (11); **aise egin** (33); **aise egiten** (30); **aise egiten ahal** (5); **aise eman** (5); **aise ere** (39); **aise ere gehiago** (10); **aise ereman** (6); **aise erraiten** (13); **aise erraiten ahal** (6); **aise eta** (62); **aise eta aise** (21); **aise eutsi** (6); **aise ezagutuko** (5); **aise gailendu** (15); **aise gainditu** (22); **aise gainditu du** (5); **aise gainditu zuen** (8); **aise gaindituko** (8); **aise gainditzen** (14); **aise gainera** (7); **aise galdu** (6); **aise garaitu** (12); **aise gehiago** (69); **aise gehiago ere** (13); **aise gutiago** (22); **aise hartu** (18); **aise hartu zuen** (9); **aise hartuko** (6); **aise hartzen** (9); **aise heldu** (7); **aise hobe** (8); **aise hobeki** (10); **aise ikus** (6); **aise ikusten** (9); **aise irabazi** (129); **aise irabazi dio** (8); **aise irabazi du** (21); **aise irabazi dute** (15); **aise irabazi ostean** (5); **aise irabazi zion** (14); **aise irabazi zuen** (21); **aise irabazi zuten** (12); **aise irabaziko** (11); **aise iritsi** (5); **aise izanen** (7); **aise jende** (10); **aise jende gehiago** (5); **aise joan** (5); **aise konprenitzen** (6); **aise lehenago** (11); **aise lerratzen** (9); **aise lortu** (16); **aise lortu zuen** (6); **aise lortuko** (5); **aise mendekatzen** (8); **aise menderatu** (17); **aise menderatu zuen** (7); **aise merkeago** (10); **aise mintzo** (18); **aise moldatzen** (6); **aise nagusi** (14); **aise nagusitu** (40); **aise nagusitu zen** (14); **aise nagusitu zitzaion** (5); **aise nausi** (6); **aise nausitu** (6); **aise onartzen** (9); **aise pasatu** (6); **aise pasatzen** (8); **aise sartuko** (5); **aise sartzen** (9); **aise sobera** (14); **aise uler** (8); **aise ulertuko** (10); **aise ulertzen** (9); **aise urrunago** (13); **aise uzten** (7); **aski aise** (19); **bai aise** (5); **baina aise** (26); **bainan aise** (13); **baino aise** (108); **baino aise ere** (9); **baino aise eta** (9); **baino aise gehiago** (11); **baino aise gutiago** (7); **baino aise jende** (5); **baitira aise** (6); **baskoniak aise** (5); **bat aise** (34); **bat baino aise** (5); **batzuetan aise** (5); **batzuk aise** (5); **berdin aise** (9); **beti aise** (5); **bezain aise** (29); **biziki aise** (13); **da aise** (51); **da aise izanen** (5); **dela aise** (11); **dira aise** (6); **du aise** (5); **dute aise** (16); **ere aise** (43); **eta aise** (122); **eta aise gehiago** (10); **eta aise irabazi** (13); **ez aise** (15); **ez baitira aise** (5); **ez da aise** (39); **ez dela aise** (9); **ez dira aise** (5); **ez dute aise** (14); **ez zen aise** (16); **frango aise** (21); **gero aise** (6); **golak aise** (5); **golak aise egiten** (5); **haatik aise** (7); **hain aise** (33); **hein bat aise** (16); **hoin aise** (10); **hori aise** (25); **horren aise** (7); **hura aise** (5); **jendea aise** (5); **lehen baino aise** (5); **miarritzek aise** (6); **oraino aise** (13); **oraino aise gehiago** (5); **sobera aise** (12); **zein aise** (8); **zen aise** (21); **ziren aise** (5); **zoin aise** (10); **zuten aise** (7)

---

aiseki *adlag* aise.

Nihaur urruntzeko xedea ere ez nuke halako higuinik gabe hartuko: zeren Tourvel jaunari dagozkion arrazoi dagoeneko jakinaraziak dizkizudan horiez gainera, baldin nire partitzea gaitzituko balitzaio Valmont jaunari, balitekeena, ez ote ninduke Parisa **aiseki** segituko? Jon Muñoz

---

aiseria *iz ipar* aisetasuna.

Herri ordezkariak nazioaren prokuradore batengan desegokia zen **aiseria** hori gaitzetsi zuen, eta gizona ez zen ihardokitzera ausartu. Elena Touyarou

Aiseria moderno guti hemen, naski, baina nahas-mahas sinpatiko bati laster plegatzen zaio erromesa. Piarres Aintziart

Eguzki sano honekin, **aiserian** emaiten da indarra. Piarres Aintziart

Esperantza ez da **aiseriatik** sortzen. Piarres Aintziart

Gelditu gabe darrait, beheiti doan aldapak eman **aiseriaz** baliatuz, Orreagaraino lerratzea aski balitzait bezala. Piarres Aintziart

---

aisesko *adlag adkor* aise samar.

Damurik halere **aisesko** baitute partida hau irabazi. Herria

Erran behar da **aisesko** zoatzila irabazleak haste berdinago baten ondotik, 31-15, pariatzaileak ere ixiltzen hasiak, Ibarrolak 9 bote eginik ordukotz, eta areago oraino 41-18 tan zirelarik. Herria

Hau Sascok eta Espilek dute **aisesko** ereman, aihertar gazteeri nausituz. Herria

Gazteen partida pollit hau lehenek **aisesko** eremana zuten aitzinean, soberasko desbardinduz haatik bi pareak. Herria

---

aisetasun *iz* erosotasuna, lasaitasuna, ongi izatea. ik **aisia**.

Familiak arrimoren bat bilatzen ahalko zion ofizialen baten itzalpean, baina hark uko egin zion **aisetasun** horri. Aingeru Epaltza

Ez du sekulan amor eman Biscoubyk ere baina duda bat sartua nunbaitik eta lasterka bizi batzu ere galtzetan zituen, **aisetasun** ederra hartua zuen lehen kusiaren aintzinean. Herria

Publizateetako diru sarrerek **aisetasun** handiagoa ematen ziguten, zeren eta, 500 harpideduneko kopuru batekin ezinezkoa baitzen gastuei aurre egitea. Berria - Mundua

Joseba Egibar eroso, gaia ezagutu eta egoera menderatzen duenaren **aisetasun** harro samar horrekin. Berria - Harian

Triesten guztiz naturaltzat zeuzkaten kausa jakinik gabeko bat-bateko aldarte aldaketak, haserre handirik eragiten ez zituzten elkarren arteko txantxa eta zirtoak, bizitzeko **aisetasuna**, kalean etengabe entzuten ziren jende baztertuen bakarrizketak -eta baita dirudunak ziruditen oso ondo jantzienak ere-. Anjel Lertxundi

Diru horrek Harryri ordura arte irudika ere ezin zuen bezalako **aisetasuna** eta gizarte-estatusa ekarri bazizkion ere, uste okerra izango litzateke pentsatzea aberatsa zelako bakarrik ezkondu zela harekin, edo amarruekin sartu zela bizimodu berri hartan. Oskar Arana

Telebistak gehien bat Yamusukro eta Abidjan hiri nagusietako egoera dauku erakusten, bai-eta **aisetasunean**, kolonialismo kutsu batekin, bizi diren europanoen griñak Herria

---

aisexago *adlag* apur bat aiseago.

Bigarrena doi-doietarik irabazi (15-14) eta hirugarrena **aisexago** beretu (10-5). Herria

Apirilaren 9 an bitorios sartu ziren Irakian amerikano tropak eta uzkaili ere zen uste baino **aisexago** Saddam Husseinen nagusitasuna herri hartan. Herria

Erramuz, jendea **aisexago** bilduko ginuela orobat. Herria

Beroan bero, Ipar-Euskal-Herria zertan den funtsez azterturik, ekartzen balitu zonbait lantegi eta bizitegi askoren arrazoinki eraikitzeko moldea, gure gazteak hemen berean **aisexago** kokatzeko gisan! Herria

---

aisexko *adlag adkor* aise samar.

Denek ere **aisexko** ahanzten orobat mendia ez dela batzuena edo besteena, bainan denena, han bizi denak haatik baduela halako lehentasun bat, etzaiona hola eta hola ukatu behar. Herria

Nornahiren eskubideak **aisexko** zangopilatzen ahalko ere direla miatze batzu noiz nahi nun nahi eginez. Herria

Aisexko eta sobera ahanzten orobat girixtinoentzat Eguberri dela oroz gainetik Jesusen sortzea ospatzea gatik finkatua dagon bestaburua. Herria

Oroituz duela dotzena bat urte inglesa ez sobera nagusitzeko zutela lege-nagusian sartu bigarren artikulu famatu hura, azkenean euskara bezalako mintzairen trabatzeko **aisexko** baliatzen dena! Herria

Bestalde, arrastatuak izaiten direnak, gazte edo ez hain gazte, **aisexko** libratzen direla, hor ere aldaketa batzu nahi dituzte egin. Herria

---

aisia 1 *iz* atsedenezko, erosotasunezko egoera.

Irakurtzea nuen ihesbidea eta **aisia**, kontsolamendua eta pizgarrietan kutunena: plazer hutsagatik irakurtzea, idazle baten hitzen oihartzuna zeure buruan entzuten duzularik inguratzen zaituen gelditasun ederrarengatik. Oskar Arana

Aisia eta kulturarekin erlazionaturiko jarduerak garestitu ziren gehien aurreko hilabetean. Berria - Ekonomia

Gainerako kontuez, noski, ez zeukaten inolako arazorik: jakiz eta edariz oparo hornituak zeuden, baita **aisiarako** materialez ere. Karlos Linazasoro

Lurra lantzen edo lanarazten dutenak, fruitu-soberakina dutenez, ezerk ez ditu behartzen hurrengo urtean lan egitera; **aisian** bizi den jendeak ez lituzke kontsumituko fruituak, jende horrek ez lukeelako zerekin erosi. Iñaki Iñurrieta

Hara, behin betiko: ez niken nahi, lau-lau esateko, aurrerantzean hik heure **aisia**-unerik batere laidoztatzerik hitz eta solasbide emanik Hamlet printzeari. Juan Garzia

Gero, astiro-astiro, kantarien hatzek jotako xirulak, baso eta oihan ezkutuetan, artzainen inguru bakartietan eta **aisia** jainkozkoetan aurkituak hedatzen zituen auhen xarmagarriak ikasi zituzten. Xabier Amuriza

Aisia eta aldarrikapena uztartuko ditu, hirugarren urtez, Hizkuntza Eskubideen Egunak. Berria - Euskal Herria

Amaigabeko **aisia** gisako batean murgilduta zegoen. Josu Zabaleta

Gero gure **aisiara** genbiltzanetan, bizikleta gainean zebiltzan emakumeei begiratzen irakasten nion lehengusuari. Pello Lizarralde

Nafarroa edo Lizarra, beraz, afektuen mundua izan da eta baita guztiz idealizatutako eremua ere, ez delako lan lekua izan, opor lekua baizik, hau da, gozamenerako eta **aisiarako** lekua. Ana Urkiza

2 ***aisian*** *adlag* erosotasunez eta zereginik gabe. ik **aisia 3**.

Lurra lantzen edo lanarazten dutenak, fruitu-soberakina dutenez, ezerk ez ditu behartzen hurrengo urtean lan egitera; **aisian** bizi den jendeak ez lituzke kontsumituko fruituak, jende horrek ez lukeelako zerekin erosi. Iñaki Iñurrieta

Ez bazegoen gure gustuko filmik, **aisian** ibiltzen ginen, liburu erosi berriak edo astean zehar irakurritakoak genituelarik ia solasgai bakar. Anjel Lertxundi

Ni ere errege naiz baina ez **aisian**. Piarres Xarriton

3 ***aisiara*** *adlag* atsegin edo gogoko duen erara. ik **aisia 2**.

Hamazazpi bat urterekin neskatxa izatetik emakume izatera igarotzen den unetik askeago, alaiago sumatzen zaio, bere gogara edo **aisiara** bizitzen hasi balitz bezala, aurpegitik irribarrea ezabatu ezinik ageri da. Joxean Agirre

Gero gure **aisiara** genbiltzanetan, bizikleta gainean zebiltzan emakumeei begiratzen irakasten nion lehengusuari. Pello Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 1 aldiz agertzen direnak)

aberastasuna eta aisia (1); **ageriena aisia pairatzeko** (1); **aisia alferkeria bihur** (1); **aisia bat** (1); **aisia berez txar** (1); **aisia betetzeko ekintza** (1); **aisia edo aisetasuna** (1); **aisia edo kulturarako** (1); **aisia ekoizpenen horniduran** (1); **aisia eskatzen hasi** (1); **aisia eta aldarrikapena** (1); **aisia eta alferkeria** (1); **aisia eta askatasunerako** (1); **aisia eta espirituaren** (1); **aisia eta jakituria** (1); **aisia eta kultura** (2); **aisia eta kulturarekin** (1); **aisia eta lana** (1); **aisia gehiago edukitzeko** (1); **aisia gisako batean** (1); **aisia gune bilakatu** (1); **aisia gustura bete** (1); **aisia gutxietsi zuen** (1); **aisia guztia izango** (1); **aisia har ezak** (1); **aisia hori** (1); **aisia izan baitzen** (1); **aisia**

jainkozkoetan aurkituak (1); **aisia kalera atera** (1); **aisia leku** (2); **aisia leku bihurtzen** (1); **aisia leku publikoetan** (1); **aisia nagiaren oihartzuna** (1); **aisia nahi den** (1); **aisia orduak** (1); **aisia pairatzeko ezintasuna** (1); **aisia parkea** (1); **aisia turismo kultura** (1); **aisia txarra da** (1); **aisia ulertzeko modua** (1); **aisia unerik batere** (1); **aisia zale** (2); **aisia zale amorratua** (1); **amaigabeko aisia** (1); **baita aisia eskatzen** (1); **batek aisia gehiago** (1); **behar dugu aisia** (1); **berak irabazitako aisia** (1); **bere aisia orduak** (1); **bertzeak aisia** (1); **beste aisia leku** (1); **bilakaera neurtzeko aisia** (1); **eskulangintza aisia turismo** (1); **hik heure aisia** (1); **ihesbidea eta aisia** (1); **irakurketa bezalako aisia** (1); **kontsumoa eta aisia** (1); **kultura eta aisia** (1); **lana eta aisia** (1); **lana versus aisia** (1); **letra gabeko aisia** (1); **neure aisia** (1); **paisaia edo aisia** (1); **parisko aisia parkea** (1); **publiko aisia zale** (1); **sintomarik agerienа aisia** (1); **soilik da aisia** (1); **ustekabeko aisia bat** (1); **versus aisia kontrajartze** (1)

aisiak balio absolutua (1); **aisiak egonaldi hura** (1); **aisiak geure buruaren** (1); **aisiak industriaurrean** (1); **aisiak jadanik garrantzirik** (1); **benetako aisiak** (1); **lanak eta aisiak** (1)

---

aisialdi 1 *iz* nork bere gogara bete dezakeen denbora.

Donostiako **aisialdi**, jai eta kulturako jarduera guztietan. Askoren artean

Tokian tokiko berezitasunak (janzkera, **aisialdi**, zaletasun eta antzeko alorretakoak) etengabe suntsitzen dituen masifikazio prozesutik atera behar da elikadura lehenbailehen. Edorta Agirre

Atsekabez nekusan **aisialdi** hura finitzen ari zela, nahiz arras gostuko nuen; eta **aisialdia** luzatzeko, mariskalaren emaztea neure etxera gonbidatu nuen. Jon Muñoz

Dirudunek haurren eskola eta **aisialdia** bermatua zuten. Berria - Harian

Urtegian **aisialdia** kudeatzeko gune egokia izan behar omen dute. Edurne Elizondo

Aurreko sailean aipatu dira euskalkia erabil daitekeen esparru zenbait: **aisialdia**, irakaskuntza, lan arloa, herri hedabideak, administrazioa eta literatura. Koldo Zuazo

Instituzioetatik bideratzen den **aisialdia** kontsumista da erabat, ez dituzte gazteak kritiko izatera bultzatzen. Berria - Harian

"Aisialdia eta kontsumitzeko beharra nahastea" egotzi zien merkataritza guneei, eta gaitzetsi zuen herriak hustuko dituela "munstro handien lehia jasanezinak". Berria - Ekonomia

Orain, ordea, ez bakarrik nagusiak **aisialdia** eman behar zizun, atseden hartzeko; ordaindu egin behar zizun, gainera, **aisialdia**! Jon Muñoz

Nola hezi gizarte oso bat **aisialdiaz** gozatzen jakin dezan? Berria - Gaiak

Hezkuntzan baino diru gehiago gastatzen dutelako **aisialdian**. Berria - Harian

Euskharanek, batez ere, **aisialdian** eta oporraldian eskaintza egiteko ahalegina egin du. Berria - Euskal Herria

Anaietako batek, **aisialdian** nahiz lanean, anaien artean hitz hutsal edo alferrikakorik esango balu, behartua dago "Gure Aita" bat esatera, otoitzaren hasieran eta bukaeran Jainkoaren Gorespenak esanez. Askoren artean

Horrenbestez, ordu asko pasatu nituen bakarkako **aisialdian**, edo, modu dotorean esanda, "il dolce far niente" praktikatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Aisialdian eguraldiak duen garrantzia ere azpimarratu zuen. Berria - Euskal Herria

Arte lanak, eraikinak, **aisialdiarekin** lotutako ekintzak,... horietan guztietan ikusiko dugu ordenagailuaren eskua, horrela hitz egin baldin badaiteke behintzat. Pello Salaburu

Aisialdiaren esparruan erakusketa ibiltaria antolatuko du Anasapsek. Berria - Euskal Herria

Aisialdiaren sektorea enpresa multinazionalen hazkundearen paradisu bihurtu da. Koro Navarro

"Jostatze-praktika" horiek hartuko lukete **aisialdiaren** zati handi bat irratiaren eta telebistaren aroan. Iñaki Mendiguren

Aisialdiaren sirena hotsa entzun bezain laster, Ogasun egoitzaren parean zegoen kafetegira abiatu zen. Aritz Gorrotxategi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Inork ez zuen "opor" hitza esaten, aberatsen hitza baitzen hori, **"aisialdi** ordaindua" baizik. Jon Muñoz

Diru gehiago poltsikoan alferrikakoa zen haientzat **aisialdi** gehigarriari uko egitearen ordainetan irabazi behar baldin bazuten, hau gabe ez baitzuten astirik izango gastatzeko. Iñaki Mendiguren

Nola erabiliko zuen gizadiak etorkizuneko **aisialdi** unibertsal hau? Iñaki Mendiguren

Benetako **aisialdia**, filosofo greziarren arabera, "atseden aktiboa" da. Berria - Euskal Herria

Ez zuen uste emakumea larregi kezkatuko zuenik senarraren alderdi ezkutua ezagutzeak, gizona aldikako **aisialdi** haiekin nahikoa bazuen bederen. Migel Angel Mintegi

Laster abiatuko diren udako oporretan, Uda Leku elkarteak ohi duen bezala euskarazko hainbat **aisialdi** proposatuko ditu. Herria

Herritarrek batez beste bi ordu eta 39 minutu pasatzen dituzte **aisialdi** pasiboan, duela bost urte baino 15 minutu gutxiago. Berria - Euskal Herria

Bestetik, **"aisialdi** aktiboa, kirola egitea edo Interneten nabigatzea. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aipatutako helburuak betetzeaz gain, informazio, zerbitzu, **aisialdi** beharrak gero eta aseagoak dituela euskal prentsan. Berria - Euskal Herria

Larrienak traba arkitektonikoak dira, leku askotarako sarbidea galarazteaz gainera oztopoak ipintzen dizkigutelako duintasunez hezkuntza jaso, lana topatu edo **aisialdi** zerbitzuak gozatzeko. bertako egoitzetan bizi diren aitite eta amamentzat animazio programak garatu eta **aisialdi** aukerak eskaintzea da auzolandegian dabiltzanen egiteko nagusia. Berria - Euskal Herria

Instituzioek eskaintzen duten **aisialdi** ereduarekin ez zaudete ados? Berria - Harian

Frantzian **aisialdi** zentro laikoak biltzen dituen Franca izeneko elkarteko kideak dira. Berria - Harian

Aisialdi gune horretan era guztietako ekitaldiak antolatu ziren, hala nola zezenketak, aizkolari txapelketa eta kontzertuak. Berria - Euskal Herria

Asmoa, saltokien eremuaren alboan **aisialdi** toki erraldoi bat egitea da. Berria - Euskal Herria

Gurasoek ere erabil dezakete etxean, baita **aisialdi** taldeek edo elkarteek. Berria - Harian

Engaiamendu hori hartu dutenetan: 21 komertsio eta eskulangintza, 5 jatetxe, 12 kultur, erakaskuntza eta **aisialdi** elkarte, 6 osasun maileko, kirol elkarte bat (Ñapurrak) eta Posta. Herria

Zuk -esan genion-, gauzak izpiritu arin eta azalekoaz aztertzen dituzu, eta liburu bat, antzinakoen eta oraingoen gidari, ulertzen duzula uste duzu, horri edanari eta ohaidetzari kenduriko **aisialdi** unetxo batzuk eskaini dizkiozulako, berori historia edo poesia liburu bat balitz bezalaxe. Xabier Kintana

Orobat hartu behar da kontuan bidaia-bulegoak eta ostalaritza, **aisialdi**-parkeak eta komunikabideak (prentsa-bulegoak, egunkari eta telebista- kateak) bezalako jardueren nazioartekotzea. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Droga kontsumitzeko testuingurua (gazteen gau **aisialdia**) eta kontsumitzeko motibazioa (ondo pasatzea eta arazoetatik ihes egitea batik bat) aldatu egin dira. Berria - Euskal Herria

5 ***aisialdi talde***

Orain, **aisialdi taldeetan** jarri ditugu indarrak. Berria - Euskal Herria

Gurasoek ere erabil dezakete etxean, baita **aisialdi taldeek** edo elkarteek. Berria - Harian

6 ***aisialdiko arrantza*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***7*** *agerraldi)*

Izatek uste du batez ere **aisialdiko arrantzagatik** hil nahi dituztela hegaztiak. ETC-prentsa

Aisialdiko arrantza edo kirol arrantza plazeragatik edo lehiaketa modura egiten den arrantza da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aisialdi gune (3); **aisialdi gunea** (3); **aisialdia eta** (11); **aisialdia eta kultura** (3); **aisialdian eta** (3); **aisialdirako aukera** (3); **aisialdirako eta** (5); **aisialdirako gune** (4); **eta aisialdi** (5); **eta aisialdia** (5); **eta aisialdirako** (11); **gazteen aisialdia** (3)

---

aisit *izond* ahalegin handia eskatzen ez duena, arina.

Eta ene spirituak -zeren anaiarenaz ez bainago hain segur- argi klar hartarik hats hartu, eta gaitz zirudiena ere erraz, arin eta **aisit** bilakatzen zitzaidan. Joan Mari Irigoien

---

aislante *iz/izond* berotik, elektrizitatetik, hotsetik isolatzen duena. ik**isolatzaile**.

Maleterora eskuak sartu eta aurreko nahiz atzeko hankak zinta **aislantez** loturik zituzten bi zakur atera zituzten bertatik, arrastaka eraman zituztenak pabilioiarekin komunikatutako beste egoitzaren batera, hauen zaunka itoei entzungor. Harkaitz Cano

Eskuak loturik zituen bizkarrean eta aulki batean eserita zegoen -teknikoki ez da egokia eserita zegoela esatea, halabeharrez baitzegoen hala- hankak ere zinta **aislantez** eta desegindako pertxa kateatuen alanbrez estekaturik, oinak bata bestera bilduta. Harkaitz Cano

Patakiren ile adats beltz eta luzea ezpainen artean pilatzen zen, ahoa kiribiltzen zion zinta **aislantez** inguratua. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zinta aislantez** (3)

---

aislatu, aisla(tu), aislatzen du *ad* bakartu. ik **isolatu 2**.

Beraz harkaitzen batera igoko zen; eta itsasgorak **aislatu**. Anton Garikano

---

aita *(ETCn **129.435** agerraldi)* **1** *iz* seme edo alaba bat edo gehiago sortarazi dituen gizona; hainbat elizgizoni ematen zaien titulua; erlijio katolikoan, Hirutasun Santuko lehen pertsona. ik **aba**.

Aitak ez zion sekula haserrerik egin, ez eta galdetu ere zergatik jokatzen zuen horrela. Elizen arteko biblia

Teknikoki, badu nahikoa adin haren **aita** izateko; baina, teknikoki, hamabi urte nahikoa ditu batek **aita** izateko. Oskar Arana

Aitak erosiak izan behar zuten. Koldo Izagirre

Gure **aitak** denetik egiten zekien, berrogeita zortzi urte betez geroztik jubilatua zegoelako. Fernando Rey

-Baina tokatu egin zaigu, moñoña: zure aitona da eta, okerragoa dena, nire **aita**. Aitor Arana

-Mutil euskaldun gazte bat **aitarengana** joan omen zen, ezkondu egin behar zuela eta. Patxi Zubizarreta

Adinari zegokionez, nire **aitaren** jirakotzat hartu nuen hildakoa. Anjel Lertxundi

Uther, Arturren **aita**, bretainiarren errege izendatu zuten orduan, eta haren ondoren Arturrek hartu zuen erregetza. Juan Kruz Igerabide

Ezkien parean geunden eserita, **aitaren** erlauntzen parean, baina erlauntzak hutsik zeuden jadanik. Ander Irizar

Baserrira iristean, deitu dio umeari eta esan dio: "hara **aitak** ze opari ekarri dian gaur!". Andoni Egaña

Dozena bat aldiz eskatu dizut gurera etortzeko, eta aurreko batean, **aita** etxera etorri zenean, esan zigun oharpen ofizial bat izan zenuela magia erabiltzeagatik muggleen artean... Iñaki Mendiguren

Mairuekin hainbat urtetan bizitakoa da semea eta **aitak** berak baino joera kezkagarriagoak ditu, ohitura ez-ohikoak eta arraroak... J.M. Olaizola "Txiliku"

Apeztu nahi nuen, naturalki, ebidentziaz, **aitaren** anaia misionest gaia, eta arreba Serora xuria heroi perfektuak zirelakotz enetzat. Piarres Aintziart

Txatoren **aita** erreketeetan ibilia zen, askotan kontatzen omen zion patarrari bolbora bota eta su emanda hartu izan zuela, gudarien muinoetan goiti artilleriarik gabe erasora abiatu aitzin. Koldo Izagirre

Aita, gerra zela eta, oso markatua zegoen. Ana Urkiza

Aitak ahoa zabaldu zuen, baina ezer esan ordez, ogi egin berrian gurina zabaldu eta ahoan sartu zuen. Anjel Lertxundi

Aitak, berriz, bere larogeita bost urtetan, maiz egiten du dominstiku, eta hasten denean, dozenaren bat elkarren segidan egin arte, ez zaizu isilduko. Patziku Perurena

Haien **aita** izugarri aldatzen ari zen. Jasone Osoro

Berri triste hori **aitari** helarazi behar zaiok, inori baino lehen. Agustin Otsoa

Aitaren aita, aitona, oraindik jopu izana zen. Matías Múgica

Aita gerran hila zela esan zuen nire amak, eta bilaketa ahalegin berezia egin nuen nik neure barruan, hartaz oroitu ahal izateko. Joxan Elosegi

Esate baterako, gogoan dut **aitak** askotan kontatzen zidala... Xabier Olarra

Aitaren eskutik sartu zen salmenta departamentura. Migel Angel Mintegi

Baigorrikoa baitzuen Patxik **aita**, Azpila ezkondu bazen ere gero, eta hala nahi izaten baitzuen maisuak frantses pixka bat ere ikas genezan. Joan Mari Irigoien

Norbaitek esan du **aita** Luis XV.aren erregealdiko libertinorik distiratsuenetakoa izan zela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aitak esan du goiz egiten dituztela hiletak herrietan, Donostian iluntzean izaten direla. Lourdes Oñederra

Aitarik gabe egin dut bizitza. Aingeru Epaltza

Emadazue seinale bat, segurua, bizirik utziko dituzuela nire **aita** eta ama, nire nebak eta ahizpak, beren senide guztiekin, eta heriotzatik libratuko gaituzuela. Jose Antonio Mujika

Aita eta anaia egongelan ETB-Kirolak ikusten. Unai Iturriaga

Espero izatekoa zen beraren **aitak** bezala profesional gisa karrera egingo zuela. Xabier Olarra

-Aita, aurten denok joango gara Tarara? Joanes Urkixo

Ama zen, izan, antzezle, eta arrakasta handia izaten zuen bere lanetan; **aitak** ez zuen antzerkirako batere balio, eta edaten hasi zen. Koro Navarro

Joan den urtean Sacramenton geldialdi bat egin nuenean gure **aitak** kontatu zidan istorio bat nahi dizuet kontatu. Koro Navarro

Aitak behiak jetziko ditu eta esne pertza mukururaino beterik igoko ditu eskailerak. Iñaki Zabaleta

Zeren eta azken finean ez ote dugu **aitarik** zein amarik, anaiarik zein ahizparik? Jon Muñoz

-Aita, Semea eta Espiritu Santua, hiru; eta hala ere jainkoa, bat eta bakarra bera! - gogoratu zitzaidan, ontzia halaxe ikusi bainuen; jainko. Edorta Jimenez

Seme-alabek negar egin zuten hasieran, baina gero, haiek ere ohitu ziren **aitaren** itxura berriarekin. Jasone Osoro

Urtebete lehenago **aitari** zoro deitzearen jolasa egin izan balio, nekez ziratekeen orain legetxe arraunean suabe eta baketan. Josu Landa

Zeren, hain dira txikiak logelako aulkiak! Eta **aita** hain da handia! Jokin Muñoz

Ezkontzarekin, **aitak** bere ama ekarri zuen etxera, eta amak, aldiz, bere ahizpa ezkongabea. Ana Urkiza

Aldika bere **aita** bide zena sukaldeko leihoan paratzen zen eta niri begira egoten zela iruditzen zitzaidan. Patxi Zubizarreta

Alabak **aita** eta emazteak senarra galdu berria zuten hiru bat hilabete lehenago. Rafa Egiguren

Ezker aldean, zure **aita** dago; eskuin aldean, berriz, zure ama; eta bere sabel lodian, zu, jaio gabea oraindik. Aritz Gorrotxategi

- **Aita** ni izatea gura duzu? Koldo Izagirre

Espainian, Filipe II.ak, haren **aita** Karlos V.ak bezalaxe, etengabe negoziatu behar izaten zituen negozio-gizonekin bere politikagintzaren finantza-bitartekoak. Koro Navarro

Aitaren ahaide batzuk New Yorken bizi ziren, eta prest agertu ziren Jonas beren etxean hartzeko. Oskar Arana

Aita, Eulogioren esana erdizka bete zuen seme hura, jenio bizikoa zen eta nekez egiten zien "amen" inoren esanei. Xabier Etxabe

Gure **aitak** trenbide horretan jardun zuen langile behartu, Sukarrieta eta Bermeo arteko tartea eraikitzen hain zuzen. Edorta Jimenez

Roseri esan ere egiten zion, barreka, aski zaharra zela, bere **aita** izateko lain; baina biek ala biek ere ez zuten sekula halakorik sinetsi. Mirentxu Larrañaga

Merezi izan ote dion, horra batzuetan etortzen zaion galdera, erran nahi baita, merezi izan ote dion **aitaren** zapategia utzi izanak, erregeren alde egiteko. Aingeru Epaltza

Aita medikua zen eta artezalea. Ibon Uribarri

Horregatik **aitaren** gorputz handia lauso batean bildua ikusten du orain, ohe bazterrean. Jokin Muñoz

Bera amarekin bizi da Bartzelonan, eta oporretarako etortzen da hona, **aitarengana**. Josu Zabaleta

Arratsalde hura bereziki ederra izan zen: **aita** ez zetorrenez, osabari motorraz joatea proposatu nion eta berak irribarrez onartu zuen. Aitor Arana

Eskola, pentsa dezakezuen bezala, drama egina dugu etxean... Ama negarrez eta **aita** errietan; edo aldez bestera, agian: amak nau sermoneatzen eta aitak ez du txintik ere ateratzen. Jesus Mari Mendizabal

Halere, badirudi **aitaren** errepertorioa berreskuratu eta gaur egungo euskal musikan sartu izanaren pozak estaltzen duela hainbat piezaren egiletza betirako galdu izanaren pena. Pako Aristi

Junior **aitaren** berdin-berdina izango zen, hortzetako aparatua kentzen ziotenean; eta, Charlotte txikiak, amaren antz handia zuen. Mirentxu Larrañaga

Bestenaz ere esneketaria "gorria" omen baitzen, jendeak hala zioen segurik, eta ene **aita** aldiz "xuria". Janbattitt Dirassar

- Bai noski, artzapeza, **aita** Kiril alegia; semeak Ganberan lan egiten du - esan zuen Korobotxkak. Jose Morales

Haurrak, berriz, gurasoen arteko haserreak ikusi, **aitarik** gabe gelditu eta betiko traumaz jota gelditzen dira. Gotzon Garate

Beraz, neskaren **aitak** ez zuen begi onez ikusten maitasun hura, eta etxean giltzapetu zuen Saubade, laguna berriz ikus ez zezan. Martin Anso

Aita Azpilkuetako jauretxetik zetorren, hortik ere haren izena. Piarres Xarriton

Eta gero, **aita** batek biologia egin behar duela kaskagogortu zaion seme bati esango liokeen bezala, konplizitatez: J.M. Olaizola "Txiliku"

Eskolatik ateratakoan **aitarengana** joaten baita entseatzera. Bernardo Atxaga

Aitak etxetik bota eta gero igo zen jauregira. Xabier Olarra

- **Aita** Ildefonse ere galdezkatu behar dugu. Marzel Etxehandi

Aitari entzundako bertsoren baten durundia, agian. Pello Lizarralde

"O Salomon, ez da aski zure hitzek zure **aitaren** hitzen kontra egitea? Xabier Kintana

2 irud/hed

Ptolomeok, ordea, ikusi zuen poeta guztien **aita** eta literatura guztien buru izandako hari bera aurrean egon gabe egiten zitzaiola eraso, hau da, bere idatziengatik mundu guztiaren onarpena merezi izan zuen hari mesprezio egiten zitzaiola, eta ez zuen inolako erantzunik eman. Santiago Iruretagoiena

"Turkiarren **aitak**" sultanari agintea kendu, kalifagoa abolitu eta Turkiako Errepublika laiko eta modernoa sortu zuen. Jon Arretxe

3 (izenondoekin)

Badut lagun bat, Igeldokoa, **aita** berria. Joxerra Garzia

Neskato sendo baten **aita** dohatsua zara. Lopez de Arana

Golubtxik nire **aita** legezkoaren izena zen, baina nire benetako izena, nire izen naturala, nire **aita** naturalaren izena, Krapotkin zen. Matías Múgica

Dollyren **aita** biologikoaren penak "inarrosi" ninduen, kontuan hartuz gaur egungo bioteknologia goraipatua herenegungo artzain bakartien ardifiliarako ohitura sexualen urrats berdinetarik zihoala. Itxaro Borda

"Ez al dik lotsarik ematen?", esaten zioten, "hire **aita** zaharra soroan eta hi berriz hemen tabernan eserita!". Bernardo Atxaga

Aita gaixoak ez omen zekien zer egin alabarekin, baina, nolanahi dela, oraindik ere eusten zion esperantzari, hari-izpi mehe batez besterik ez bazen ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Barbara Allen alaba bakarra zen, eta, neskatoa zela ama galduta, **aita** zurrutero eta jokalariarekin bizi zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Biktima ere bai, familia-girorik sortzea lortu ez duten gurasoen biktima, **aita** urrun eta atzeman ezinarena, frustrazioak garraztutako amarena, anai-arreba berekoiena, eta bere buruarena, ezin baititu bere sentimenduak ulertu eta adierazi, ezta nagusien mundua eta bizitza ulertu ere. Itziar Otegi

Espos leiala eta **aita** amultsua. Herria

4 ***aita-alaba*** *pl*

Auzoko **aita-alaba** batzuek poliziaren jipoia jaso zuten, eta, atzo bertan, salaketa jarri zuten epailearen aurrean. Berria - Euskal Herria

Bien aurpegieren antzak ez zidan okerrerako biderik eman: **aita-alabak** nituen inondik ere. Anjel Lertxundi

Aita-alaba ez al ziren bada, eguzkiarekin batera kalesa barregarrian ibilian-ibilian hasiko? Anjel Lertxundi

Ilundu zelarik, **aita alabak** jende multzoaren marearen mugimenduan hartuak ziren oraindik. Ramuntxo Etxeberri

Aita-alabaren arteko elkarrizketa baten lekuko mutua nintzen, eta ziur nengoen xehetasun batzuek ihes egin zidatela. Javi Cillero

New Yorkera itzuli nintzenean, deitzen saiatu nintzen, baina telefono aurkitegian ez ziren ageri ez Boris Merkin ez Esther Merkin; beste norbaiten etxean egongo ziren **aita-alabak** maizter. Koro Navarro

Orduan, filistearrek joan eta erre egin zituzten **aita-alabak**. Elizen arteko biblia

Eskerrak emanda alde egin dute **aita-alabatzat** hartu dituzten biek. Urtzi Urrutikoeetxea

Aita-alabak akaso? Xabier Mendiguren Elizegi

Huraxe zen gure isileko lotura, azaldua izateko hitzen beharrik ez duen **aita-alaba** arteko kidetasuna. Joxan Elosegi

5 ***aita-ama*** *pl*

Berdinak izanik bazuten, gainera, beste desberdintasun bat: **aita amarekin** ezkondu zen, eta hor bukatu ziren kontuak; osaba Benjamin, berriz... Jon Muñoz

Aita-amak hil, edo? Itziar Otegi

Aita-amak izatea esperientzia paregabea da, benetan ederra. Luis Elberdin

Oraintxe zen bere **aita-amak** mendekatzeko unea. Iñaki Mendiguren

Aita amarekin gogaituta egongo zen, eta nirekin ere bai, eta alde egiteko aitzakiaren bat beharko zuen igual. Joseba Sarrionandia

Ezin izan nien ezer galdetu, **aita-amak** togaz jantzitako gizon luze batekin baitzetozen. Koldo Izagirre

Goresmenak **aita ama** uroseri eta familia guziari eta osagarrizko handitze bat Joana ttipiari. Herria

"Eta diru mordoa aurreztu genuen psikiatran, **aita-ama** literarioak ere baditugulako ezagutarazi zigulako». Berria - Kultura

Nola bizi dute nerabezaroan bat-batean **aita-ama** bilakatzen diren gazteek esperientzia hori? Berria - Euskal Herria

Zazpi urte zituela galdu zituen **aita-amak**, eta osaba Baldomero organistak hartu zuen umezurtza. Xabier Mendiguren Elizegi

Orain, ordea, Humirzah, seguruena, gaixorik zegoen nonbait ere, deabru babesgabea, umezurtz bakartia, **aita-amarik** gabea, beraz arduratuko zen emazte leialik ez zuena. Koro Navarro

Jaun Apezen ondotik, Elizako aintzindarien baimenari jarraikiz, Jesus beraren ordainak dire gaixoeri buruz; hekien egiazko **aita amak** dire. Xipri Arbelbide

Zenbait **aita-ama** ere bai, ume txikitxoak bizkarrean. Jokin Muñoz

Izan ere, hiritar gehientsuenak, neska-mutil haien **aita-ama** baitziren, eta ez zuten, beraz, haien kontra neurri gogorrik hartzerik nahi. Karlos Linazasoro

Edo gure **aita-amak** bertsolariak ziren. Andoni Egaña

Haren **aita-amak** zortzietako mezatara joaten ziren goizero Gardiner kalera, eta Dillon andrearen usain baketsua egoten zen etxeko sarreran. Irene Aldasoro

6 ***aita-ama ponteko*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***9*** *agerraldi)* *pl*

Eguaztena ezkero garizuman sartuta gaude eta gurean ohitura da **aita-ama pontekoek** karapaixoa oparitzea besoetakoari. ETC-prentsa

Eta disko biribila ondu dute slowcore delakoaren **aita-ama pontekoek**? haiek ez dute gogoko slowcore hitz hori?. ETC-prentsa

Arrazoia: euskaraz, eta beste hizkuntza batzuetan, aitita-amamak (edo **aita-ama pontekoak**) bakarrik dira ait/amON, aita/ama (BI) TXI eta aita/ama (E) DER. ETC-literatura, saiakera

Ez zen gauza handirik behar: **aita-ama pontekoak**, lekukoak, eta apaiza; eta, noski, umea. ETC-zientzia, zuzenbidea

1807ko uztailaren 19an bataiatu zuten Nizako Saint-Martin-Saint-Augustinen eta Joseph Garibaldi eta Julie Marie Garibaldi izan zituen **aita-ama pontekoak**. ETC-

entziklopedia

7 *aita-amabitxi* *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)* *pl* ik **aitabitxi-amabitxi**.

Euskaldunen ezkontzetan ugari dira euskal abizeneko lekukoak, edo umeen bataioetan euskal abizeneko **aita-amabitxiak** azaltzen dira. ETC-literatura, saiakera

Jesusek atera zuen pontetik, eta, Juanito neba bekaiztu ez zedin, legez ez, baina izatez haren **aita-amabitxi** ere egin ziren. ETC-literatura, saiakera

Aita-amabitxiek euren haur besoetakoei 'morrokoteak' emango dizkiete Pazko igandean. ETC-prentsa

Coruñara itzulita, ene etxea **aita-amabitxiena** izan zen. ETC-prentsa

8 *aita-amaginarreba* *pl*

Eta zer esan, gainontzeko harremanei buruz, neba-arrebak, **aita-amaginarrebak** eta suhi-errainak, eta hainbat ahaide eta kideren arteko elkarloturari buruz, guraso eta seme-alaben maitasuna bera ere, elkar maite ez dutenean, zalantzan badago eta asmoa susmopean? Imanol Unzurrunzaga

Axola handiz zaindu zituen **aita-amaginarrebak** bere zahartzaroan, eta Ekbatanan ehortzi zituen. Jose Antonio Mujika

Zazpigarrenekorik, gure Erregeren burasoek manaturik Coimbrara joan nintzelarik, haren **aita-amaginarrebak**, gure Portugaleko Jaun Andere Errege Erreginak 16 bat urtez zerbitzatu ditut. Piarres Xarriton

Egoki zaindu zituen **aita-amaginarrebak** beren zahartzaroan eta Mediako Ekbatanan ehortzi. Bera izan zen Raguelen ondasunen oinordeko, bai eta bere aita Tobitenena ere. Elizen arteko biblia

9 *aita besoetako*

Lehengusu-lehengusinek **aita besoetako** bera izan zuten, eta bataio izen bera jarri zieten biei. Karlos Zabala

Gizonak begiratzen ziolarik, begiak eraiki zituen haurrak eta so egin zion **aita besoetakoari** irribarre herabeti batekin. Anjel Lertxundi

· *irud/hed* **Aita besoetako** espainiarra aukeratu genuen, levantetarra, futbolzale porrokatua eta miloi asko zuena. Jokin Urain

10 *aita familiako*

Baina menturaz horri ihardesten ahal litzaioke Noe eta Abraham ez zirela arrazoi berarengatik deitu izan batetik **aita familiako** eta bestetik errege. Piarres Xarriton

Bestaldetik ere, ez al dira ondasuntzak **aita familiakoaren** xede zuhurra behar dutenak? Andres Urrutia

Ez ote zen Frantxua langile xume eta segitua izaten ahal, **aita familiako** normala edo nik dakita zer? Itxaro Borda

Laugarren orrialdean Hormidas Erromako burulehena zitatzen baitu, ba ote zekien Hormidas **aita familiako** izana zela aita saindu izan aintzin? Xipri Arbelbide

Hark, 39-45 gerra garaian, hiltzera kondenatua zen **aita familiako** baten lekua hartu zuen, nazien kanpamendu batean. Berria - Euskal Herria

Eta garai batean lurjabe begiratua izan zen!; ezkondurik zegoen eta **aita familiako** ona zen, eta auzokoak etxera joaten zitzaizkion bazkaltzera, entzutera eta etxaldeak zentzuzko zuhurtasunez gobernatzen ikastera. Jose Morales

Joanden astean segitu dugu bere azken egoitzarat **aita familiako** gazte bat, Felipe Felez Boto izenekoa. Herria

Aita familiako on goxo bat zen Pierre, osoki laboraria, lanak lotsatzen ez zuena. Herria

11 *aita marista* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Aita Maristekin ikasten ari nintzela, Beran Nafarroa aldizkari bat egiten genuen: Aleteos. ETC-prentsa

12 *aita nagusi*

Bertan izan ziren Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramailea, Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako ahaldun nagusia eta Juan Miguel Arregi Jesusen Lagundiaren Loiolako Probintziako **Aita Nagusia**. Berria - Euskal Herria

Zer erran behar ote diot nik orain Iruñako Konpainiako **aita nagusiari**? Joan Mari Irigoien

Satan omen da gezurraren aita, gizakiaren etsai huts den gezurraren **aita nagusia**. Jenaro Garate

Pim, bere garaian horrelakoxe joera pasakorrak izan zituen baina dagoeneko, ahaleginak egin arren, nire gauzetan gazteen lagun bezala parte hartu ezin duen **aita nagusiaren** jarreran jartzen da beti. Josu Zabaleta

13 *aita ponteko* *(orobat **aitaponteko**)*

Aita-ponteko apaiz-estudiantea izan nuen nik. Arantxa Iturbe

Nik, Sirius Blackek, Harry Potterren **aita pontekoak**, honen bidez baimena ematen diot neure besoetako Harry Potterri asteburuetan Hogsmeadera joateko. Iñaki Mendiguren

Ni... ez dakit inork inoiz esan dizun... zure **aita pontekoa** naiz. Iñaki Mendiguren

Zuk ez duzu **aita pontekorik**! Iñaki Mendiguren

Horietako bat Aita Itxaso, gure aitaren **aitaponteko** eta osaba propioa. Xabier Mendiguren Elizegi

Aitapontekoaren besarkada zen, etxe bateko ateak zabaltzen dituen horietakoa. Berria - Kirola

· *irud/hed* Platon kopetandiak, filosofiaren **aitapontekoak**, mito-ipuin baten bidez kontatzen du alfabetoaren asmakuntza, Fedro izeneko dialogoan. Joxerra Garzia

'Trip-hop' soinuaren **aita pontekoak** dira Smith&Mighty. Berria - Kultura

Kolko Mitxoleta zen gure arteko onena, gure argi gidaria, Belengo izarra; gure aitalehena, jakinduriazko iturri agortezina, begiratu beharreko ispilua, eredu gorena, **aita pontekoa**. Jon Alonso

Rousseau hartu ohi da ikuspegi horren **aitapontekotzat**.· *(izenondo gisa)* Erantsi liteke, dioguna indartzeko, Estagirako filosofo **aitapontekoari** ikasi geniona ere: infinitua ez da egoera egonkor bat, hazkundea bera baino. Joxerra Garzia

14 *aita santu* *(orobat **aitasantu** g.er. **aita saindu** ipar eta **aitasaindu** g.er.)* Eliza Katolikoaren burua, Kristoren ordekoa lurrean.

Ezin konta ahala dituk beheko mailan jaio eta enperadore nahiz **Aita Santu izatera** heldutakoak. Patxi Ezkiaga

Aita santu bat bezain serio ari zen hizketan Nofutur, bere aulki goratik. Jon Muñoz

Aita santu bat bezain serio ari zen hizketan Nofutur, bere aulki goratik. Jon Muñoz

-Hil artekoa da **Aita Santua** -Mariak. Unai Elorriaga

Hau da nire fede sakona, nahiz eta aitortu behar dudan, saminez, ez Erromako **Aita Santuak** ez Canterburyko Artzapezpiku Dohatsuak (zeinak sakontasun berdinez ohoratzen ditudan) ez dutela onartuko fede hau zabal dadin. Xabier Olarra

Aita santuak esku hartu behar du, Pio V.ak eta Inozentzio XI.ak 500. eta 600. urteetan egin zuten bezala. Berria - Mundua

Idazkeraren usadioa hobeto gorde zen Italian, han **aita santuak** aita santuak eta enperadore grekoak baitHura ez zen pozten amaren eta **aitaordekoaren** arteko konponezinekin. ziren nagusi. Iñaki Iñurrieta

Idazkeraren usadioa hobeto gorde zen Italian, han **aita santuak** eta enperadore grekoak baitziren nagusi, eder eta jori hiriak, eta garai hartan ia-ia antxe bakarrik jarduten zen merkataritzan. Iñaki Iñurrieta

Aita Santuak agintzen du berak zuzenean izendatutako kuria batekin. Pello Salaburu

Katolikoa da, modeloa, edozeri buruzko txantxak onartzen ditu **Aita Santuarekikoak** izan ezik, beharbada lesbiana da, beharbada frigida, ni seduzitzea premiazkoa zitzaion, egoista hutsa eta munstro bat nintzela uste baitzuen, tuntuna ez da, baina bai perbertitu xamarra, hala iruditzen niri, bitxia, baina, osterantzean, oso bihotz oneko emakumea, sexu-grinaz [...]. Joxe Austin Arrieta

Badakit **aita santuaren** hutsezintasunarena. Irene Aldasoro

Monarkia merovingioa ahultzean, eta karolingioa indartzean, Erromako Eliza lonbardoen aurka burrukan sartu, eta karolingioen laguntzaz **Aita Santuaren** boterea sendotu egin zen, erregeri indar erlijiozko berria emate alde. Patziku Perurena

Fernando Sebastian Iruñeko artzapezpiku eta Tuterako gotzainak Joan Paulo II.a **Aita Santuaren** esku utzi ditu bere karguak. Berria - Euskal Herria

Francesco Cenci behin baino gehiagotan salatu zuten **aita santuaren** aurrean, baina honek, Klemente VIII.ak, ez zuen inoiz zigortu, ezta Francescoren amoranteak sodomiaz salatu zuenean ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gelasio **Aita Santuak** garaitsu horretan ekarriko du Jerusalen aldetik han ospatzen den Jesus Semearen Aurkezpena eta Ama Maria Birjinaren Garbikuntza festa. Pello Zabala

-Leon **aita santua**, badakizue, jakintsu handia izan zen, eta poeta. Irene Aldasoro

Jesuiten jenerala **aita santua** adinakoa da ia-ia. Irene Aldasoro

Inguruko hirietatik hileta-ospakizunetan pozik parte hartzera etorritako jendetza handiarekin bildu ziren Frantziskoren anaiek eta semeek Jainkoari gorespenak kantatzen eman zuten **aita santua** hil zen gau osoa. Askoren artean

Hormetako batean zegoen egutegi handia Chevrolet fabrikan izandako huelga baten argazki handi batekin, Hitlerren karikura bat **aita santuaren** jantzian. Anjel Lertxundi

Kardinal hori espresuki etorria zen Perugiatik Asisa, han baitzegoen **Aita santuaren** gortea. Askoren artean

Taldea 12 lagunekoa izatera iritsi zenean, Erromara abiatu ziren, **Aita santuaren** onespena lortzeko asmoz. Askoren artean

Aita Santuaren gerra estrategia aztertuko dute, bereziki, Bonifacio VIII.aren garaikoa, eta baita Italiako hiri garrantzitsuetan sortutako merkataritza konpainiak, eta Gaztelako, Ingalaterrako eta Portugalgo erregeen gerra asmoak ere. Berria - Kultura

Aita Santu Paulo III. ak bulda baten bidez indioak "zinezko gizaki", "kristautuak izateko gauza" deklaratuz moztu behar izan zituen (1537) filosofo eta teologo espainolen eztabaidok. Askoren artean

Ahozko onespena eman zion Inozentzio III.a **Aita santu** handiak. Askoren artean

Leon Handia **aita santuak** (K.o. Iñaki Mendiguren

Gregorio IX.a, 1227an **Aita santu** aukeratua, Hugolino kardinala zen, Frantziskoren adiskidea eta ordenako arazoetan hurbileko laguntzaile izan zuena. Askoren artean

Integrista batzuek **Aita Santu** "liberalaren" konbertsiorako errezatzen zuten orduan. Joxe Azurmendi

15 *aita santuaren bedeinkazio*

"Gurutzada" terminoa normalean Mendebaldeko espedizio militar jakin batzuetara mugatzen da, aita santuak akuilaturik eta **aita santuaren bedeinkazioarekin** Jerusalemen kristau-erresuma konkistatzera, hari eustera edo berriro konkistatzera joan ziren espedizioetara, alegia. Iñaki Mendiguren

16 *aita-seme* *pl*

Roebling **aita-semeen** istorioa, Paul Austerri ostu diot. Harkaitz Cano

Ohartuko nintzen intsumisioagatik militarrek ezarri zigorra beterik espetxetik ateratzeko falta zitzaion hilabete eskasa itxaron ez izana barkatzen zidala, hitz bakan haiek gure benetako adiskidetasunaren hasiera zitezkeela, bi lagunen, bi berdinen artekoa, eta ez irakasle-ikasle edo **aita-semeen** gisakoa. Xabier Montoia

Zakuak hustutzerakoan, nork bere diruzorroa zaku-muturrean zeukan. Diruzorroak ikustean, beldurtu egin ziren **aita-semeak**. Elizen arteko biblia

Wolfgang Amadeusek hamalau urte bete berri zituela, Erromara joan omen ziren **aita-semeak** Aste Santurako, eta Sixtotar Kaperan izan omen ziren Asteazken Santuan, Miserere famatua entzuten. Imanol Zurutuza

Sakabi eta Egañazpiren arrakastak inguruetako trikitilari gehiago ekarri zituen Loiolara: Maltzeta, Zendoia, Egurrola **aita-semeak**, Epelde aita, Arbe, Epelarre, Bitarte... Iñigo Aranbarri

Aita-semeen arteko gatazka hola abiatu duk. Michel Oronoz

Buruz buru zeuden **aita-semeak** sare metaren ondoan, inork ezin arindu genion tristetasun hura ikusi nuen berriro Hucken aurpegian. Koldo Izagirre

Beit Lahia herrian bi palestinar, **aita-semeak**, hil zituzten tiroz. Berria - Mundua

Koldo eta Hur Gorostiaga **aita-semeak**, esaterako, Zarautzen ziren. Berria - Harian

Ostolaza **aita-semeak** Elgoibarko San Pedro auzoan ikusi nituen, eta orduan erabaki nuen harri-jasotzaile izan nahi nuela. Berria - Kirola

Ramon eta Pepe Artola **aita-semeak** "kaletar legera» aritzen ziren bertsolarien sailekotzat jo behar dira, Antonio Zabalaren ustez. Berria - Kultura

Aita-semeek Ama Birjinaren elizan bedeinkatu dituzte ehizarako balak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Semeak aitari egindako lapurreta edo iraina parrizidioaren mailan jartzen baduzue, **aita-semeen** arteko maitasun-harremanak hautsiko dituzue. Juan Martin Elexpuru

Orduko hartan bagoi berezi batean joan ziren **aita-semeak**. Koro Navarro

Nire isilean elkarri zerbait erran nahi diotelarik zuen mintzairan aritzen dira **aita-semeak**. Aingeru Epaltza

Ez dakit nolakoa izan zen **aita-semeen** harremana. Anjel Lertxundi

"Pentsa, **aita-semeek** sekulako sesioa izan omen zitean lehengoan, bide-seinale elebidunak direla eta ez direla". Aingeru Epaltza

Ez diogu guk oro har filia nozioari ematen diogun esanahi bera eman behar, dena den: izan ahal da **aita-semeen** artean, senar-emazteen artean, buruzagi eta mendekoen artean. Askoren artean

Noizbait ere afaldu zuten, eta Kogia Husain **aita-semeak** mozkortzen saiatu zen, hartara errazago hil ahal izango baitzuen hainbeste gorrotatzen zuen Ali Baba. Patxi Zubizarreta

Bikotearen, senar-emazteen, **aita-semeen** harremanen arazoak ageri dira Carverren testu askotan. Koro Navarro

Aita-semeen arteko harremanetan, iraganeko afektibitatea da arestian eta han; zaharron ezinaren errealitate gordina, berriz, orain eta hemen. Anjel Lertxundi

17 *aitaren batean*

Aitaren batean harrapatu zuen Petrov eta **aitaren batean** gurpiletik atera. Berria - Kirola

Gogoratzen naiz bereziki gose izan nintzela gau hartan, eta **aitaren batean** irentsi nituen atarikoak eta albahakaz ondu izkirak. Oskar Arana

Txitxikov **aitaren batean** biluzi zen, eta Fetiniari eman zizkion janzki guztiak, bai kanpokoak eta bai barrukoak, eta Fetiniak -berak ere gabonak emanik- han eraman zituen estalgarri busti haiek guztiak. Jose Morales

Egin ere berak egin zion txokotxo berria, **aitaren batean**, bost ohol zatiak iltze txikiekin josiz. Edorta Jimenez

Aitaren batean ikusi du Mikel Strogoffek nola harriak tarantas gainera erori eta bere bidelaguna jo eta txikitu egin behar duen bertan! Karlos Zabala

Zalu-malu alde egin nuen logelara eta "**aitaren batean**" aldatu nintzen, automatikoki arropa ilunak jantziz. Daniel Landart

Eta damak behin eta berriro eskertu, eta **aitaren batean** hasiko dira solasean. Anton Garikano

Prestatu kurtso klasikoa eman eta bi orenak **aitaren batean** iragaiten dira. Eneko Bidegain

Badira eguna urratu arte irauten duten elkartzeak, eta beste batzuk, berriz, **aitaren batean** amaitzen direnak. Luis Elberdin

Aitaren batean ontziraino iritsi eta kapitainari, zakar, zera aurpegiratu zion: Martin Anso

Don Pedrok duen boterearekin, **aitaren batean** botako liguke hankaz gora funtzioa. Juan Garzia

Zarrastel haiek, Albert Matsonen emazteak zioena hitzez hitz aipatuz, den-dena xahutu zezaketen **aitaren batean**. Mirentxu Larrañaga

18 *aitaren egin*

Carmen Guerra alderdikideak, berriz, **aitaren egin** zuen, Konstituzioaren liburukotearen aurrean. Berria - Euskal Herria

Aktoresa bat are okerragoa iruditzen zitzaion **aitaren egiten** zuen emakume bat baino. Fernando Rey

Aitaren egin, eta gelatik irten ginen. Irene Aldasoro

Aitaren egiteko moldeak zinez harritzen ninduen, eta deblauki errateko, izarigabea kausitzen nuen. Daniel Landart

Itxura oneko emakume bat pasatzen bazen azaltzen nion erregu hau egin behar zitzaiola zeruari **aitaren eginez**: zela horren punta izan nahiko nuke. Pello Lizarralde

Aitaren egiteko zorian egon zen. Jon Muñoz

Nikolasek **aitaren egin** zuen. Karlos Zabala

Arrautzak jarritakoan, **Aitaren egin** eta Purgatorioko arimen alde errezatu behar da. Pello Zabala

-Stella Maris, ora pro nobis! -esan zuen ontziburuak, hura ukituz batera, eta gero **Aitaren egin** zuen, irudia ukitua zuen atzamarraz. Edorta Jimenez

Egiazkotzat jo zituen bere hitzak, **aitaren egin** eta isilik geratu zen, begiak itxirik, antzerki hartan zentzumen guztiez parte hartu nahi ez zuela adieraziz. Felipe Juaristi

Gurutzearen seinalea eta **aitaren egin** zuen eliza nagusiko atearen paretik pasatzean. Juan Garzia

Goizero bezala kalera irten denean, Lucio Arregik **aitaren egin** eta zerura begiratu du. Urtzi Urrutikoeetxea

Eta **aitaren egiten** zuten ia. Koldo Izagirre

19 *arimako aita* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Baldin eta nire ordez pentsatzen duen liburua badaukat, baldin eta nire kontzientzia morala ordezkatzen duen **arimako aita** badaukat, baldin eta dieta agintzen didan sendagilea badaukat, etab., ez daukat ahaleginik egiteko beharrik. ETC-literatura, saiakera

20 *Elizako aita*

Bizitzaren arbola guztiz handia, hostotsua zen, eta, **Elizako aita** batzuek diotenez, hilezkortasuna ematen zuen. Josu Zabaleta

Basamortuan **Elizako Aitak** arrisku handian jartzen ziren: fantasmak, lilurak, San Antonioren tentazio ezagun haiek... Bernardo Atxaga

21 *Erromako aita santu*

Hau da nire fede sakona, nahiz eta aitortu behar dudan, saminez, ez **Erromako Aita Santuak** ez Canterburyko Artzapezpiku Dohatsuak (zeinak sakontasun berdinez ohoratzen ditudan) ez dutela onartuko fede hau zabal dadin". Xabier Olarra

Ontzi barruetan meza ematea ez zen haizu, baina Egun Handi hartara abiatzekoak ginelarik,eta **Erromako Aita Santuaren** izenean, antza, horretarako baimena eman zuen Armadaren buruak, itsasoko gaietan deus gutxi ei zekien Medina Sidoniako dukeak,askoren ustez lehortar hutsa zenak. Edorta Jimenez

Gertaera miragarriok **Erromako Aita santuaren** belarrietara iritsi ziren; bera da gotzain guztietan lehena, kristauen burua, munduko jauna, Elizaren artzaina, Jaunaren gantzutua, Kristoren ordezkaria. Askoren artean

Eta San Calixto 218-225 urte bitartean izan zen **Erromako Aita Santu** . Pello Zabala

-Ez, **Erromako Aita Santua** , iruditzen bazaizu. Inazio Mujika Iraola

Ni demagogoa, eta zu **Erromako Aita Santu** orbangabea! Karlos Linazasoro

22 *familiako aita*

Hori ez da desagertu baina egoera horri bertze gertakari bat gehitzen zaio, **familiako aita** edo amarik gabeko familiak. Berria - Euskal Herria

Dagoeneko, emakumea eta haurrak **familiako aitarenak** dira, haren jabetzakoak. Luis Elberdin

23 *gure aita*

Ezin izartuzkoak dira " **Gure Aita"ren** mezuak, eta lehenik Jesus Jainko Semeak erakutsia dauku " **Gure Aita** , zeruetan zirena" berri ezin prezatuzkoa. Herria

Hirugarrena, beste hainbeste Aitari, betiko Jaun berak eman diezadan; eta horretaz **Gure Aita** bat. Patxi Altuna

" **Gure Aita** », dio kristauen otoitzik ezagunenak Berria - Gaiak

Afaldu eta usaiako otoitzak, katedralaren ilunpean berraurkitzea zail suertatu zitzaion **Gure Aita** barne horzkaturik, oheratu zen. Itxaro Borda

Badu ahalik Jaunaren gorputz gurgarriaren gainean, eta hala ere ez da ausartzen **Gure Aita** esaten, aldez aurretik bere burua desenkusatu gabe: "Zeru-lurrekin bat eginik eskatzen dizugu... eta salbatzaileak agindu eta erakutsiari jarraituz beldur gabe esan dezagun". Joan Mari Lekuona

Baina gizon hori hain zen fede haundikoa, non postal hartan idazten baitzuen **Gure Aita** otoitzetik hartuz: "Egin bedi zure Nahia!" eta frantsesera itzuliz: "Que ta Volonté soit fête!", "faite" idazteko orde, gisa berean ahoskatzen baitira. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ehorzketetan Baionako katedralean entzun dira euskaraz " **Gure Aita** " eta "Jainkoaren ama", kantu horiek erakusten zutela zein atxikia zen Euskal Herriari. Herria

Eskolastikoek berriz aitatasuna nabaritu zuten, kausa, jatorria, jainkoa, " **gure Aita** zeruetan zarena» Berria - Kultura

Aspaldiko partez " **Gure Aita** Zeruetan Zirena" marmaratzen hasi nintzen, azken orena hurbil neukala kasik segur. Itxaro Borda

Gure herriak ez du merezi enbustekerian dabilen presidenterik, gure herriak bere hitzari eutsiko dion presidentea behar du, gero barkamen eske lotsagarri eta atxikopalatua ibiltzeko beharrik izango ez duena alegia - adierazi du kasik " **Gure Aita** " otoizten den abiadarekin, baina ahots sendoz, eta herri tribunaleko kide guztioi banan-banan eta tinko begiratzen zigula -. Patxi Zubizarreta

24 *zeruetako aita*

Gero, bat **Zeruetako Aitaren** aurrean dagoela, argi hitz egingo dik. Koldo Biguri

Suak ahazten ditu eta "bertan behera uzten aita eta ama, neba eta arreba" eta **zeruetako Aita** azkar bilatzen du harengana joz. Joan Mari Lekuona

Beren dohaiak ongi erabil ditzaten aholkatzen ditu: "Gizonen aurrean egin beza argi zuen argiak, ikus ditzaten zuen egintza onak, eta zuen **zeruetako Aita** goratu". Patxi Altuna

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

a aita (56); **a aita santua** (13); **a aita santuak** (24); **aita abadea** (26); **aita abadearen** (10); **aita alabak** (29); **aita alaben** (11); **aita ama** (67); **aita ama eta** (13); **aita ama uroseri** (13); **aita amak** (78); **aita amak eta** (9); **aita amek** (30); **aita amen** (43); **aita ameri** (30); **aita bai** (12); **aita baino** (18); **aita bartolome** (76); **aita bartolomek** (57); **aita bartolomerekin** (9); **aita bartolomeren** (30); **aita bat** (72); **aita batek** (34); **aita baten** (24); **aita bera** (19); **aita bere** (33); **aita beti** (16); **aita bezain** (11); **aita bezala** (46); **aita bezalakoa** (11); **aita bizi** (11); **aita da** (46); **aita david** (16); **aita davidek** (10); **aita daviden** (20); **aita davidi** (12); **aita deitzen** (11); **aita dela** (14); **aita dohatsua** (25); **aita dohatsuak** (33); **aita dohatsuaren** (21); **aita donostia** (46); **aita donostia plazatik** (17); **aita donostiak** (11); **aita donostiaren** (21); **aita edo** (47); **aita edo ama** (23); **aita ere** (119); **aita eta** (474); **aita eta alaba** (12); **aita eta ama** (133); **aita eta anaia** (13); **aita eta bere** (9); **aita eta biok** (39); **aita eta osaba** (9); **aita eta semea** (18); **aita etorri** (13); **aita ez** (149); **aita ez da** (12); **aita ez zegoen** (12); **aita ez zen** (34); **aita ezagutu** (15); **aita familiako** (24); **aita frantzisko** (64); **aita frantzisko dohatsuak** (9); **aita frantzisko dohatsuaren** (15); **aita frantzisko txit** (11); **aita galdu** (14); **aita gizon** (9); **aita gurea** (10); **aita guztiz** (17); **aita hain** (10); **aita han** (13); **aita haserretu** (10); **aita hil** (130); **aita hil eta** (16); **aita hil zen** (10); **aita hil zenean** (13); **aita hila** (21); **aita hiltzen** (11); **aita ikusi** (21); **aita ikusten** (11); **aita ikustera** (10); **aita izan** (72); **aita izan zen** (15); **aita izango** (20); **aita izatea** (16); **aita izateko** (15); **aita jean** (9); **aita jesuita** (35); **aita jesuitak** (24); **aita jesuitaren** (16); **aita kartzelan** (9); **aita maite** (13); **aita mari** (10); **aita marzel** (11); **aita morlans** (15); **aita nahiz** (9); **aita ni** (9); **aita nire** (10); **aita nola** (13); **aita nor** (14); **aita ona** (10); **aita oso** (28); **aita riquet** (11); **aita saindu** (66); **aita saindua** (91); **aita sainduak** (185); **aita sainduak bere** (10); **aita sainduak eta** (10); **aita sainduarekin** (11); **aita sainduaren** (107); **aita sainduari** (24); **aita san** (28); **aita san frantzisko** (12); **aita santu** (144); **aita santu gregorio** (9); **aita santu inozentzio** (9); **aita santu jaunak** (11); **aita santua** (137); **aita santuak** (217); **aita santuak berak** (10); **aita santuaren** (152); **aita santuaren aurrean** (11); **aita santuaren eta** (10); **aita santuarengana** (15); **aita santuari** (54); **aita sartu** (9); **aita seme** (14); **aita semeak** (72); **aita semeek** (19); **aita semeen** (23); **aita sutan** (14); **aita ta** (10); **aita txiki** (25); **aita txiki hori** (17); **aita txit** (74); **aita txit santua** (15); **aita txit santuak** (19); **aita txit santuaren** (11); **aita villasante** (10); **aita zaharra** (14); **aita zaindarien** (14)

aita zela (18); **aita zen** (31); **aita zena** (19); **aita zenak** (30); **aita zenaren** (34); **aita zenari** (14); **aita zeruetan** (10); **aitaren aita** (10); **alabaren aita** (9); **alaben aita** (12); **ama edo aita** (13); **ama eta aita** (23); **bai aita** (17); **baina aita** (72); **baina gure aita** (10); **baita aita** (16); **baitzen aita** (12); **bat aita** (15); **batean aita** (19); **batek aita** (13); **baten aita** (28); **benetako aita** (12); **beraren aita** (22); **bere aita** (354); **bere aita eta** (16); **beren aita** (29); **bi haurren aita** (11); **da aita** (74); **dago aita** (14); **den aita** (17); **dira aita** (13); **ditu aita** (12); **du aita** (47); **duen aita** (19); **dut aita** (19); **dute aita** (12); **edo aita** (43); **ene aita** (71); **ere aita** (26); **erromako aita** (16); **eta aita** (570); **eta aita bartolome** (15); **eta aita bartolomek** (18); **eta aita ere** (12); **eta aita eta** (16); **eta aita jesuitak** (9); **eta aita santuak** (17); **eta aita santuaren** (15); **eta bere aita** (35); **eta gure aita** (52); **eta haren aita** (17); **eta nire aita** (15); **eta zure aita** (10); **ez aita** (28); **ez nuen aita** (9); **ez zuen aita** (12); **ezazu aita** (13); **ezen aita** (17); **frantzisko aita** (16); **frantzisko gure aita** (13); **genuen aita** (10); **gero aita** (17); **gero aita santu** (10); **geure aita** (14); **goresmenak aita** (28); **goresmenak aita ama** (17); **goresmenak horien aita** (19); **gregorio aita** (19); **gure aita** (589); **gure aita amak** (12); **gure aita bat** (14); **gure aita ere** (11); **gure aita eta** (15); **gure aita ez** (12); **gure aita frantzisko** (24); **gure aita txit** (15); **gure aita zenak** (11); **gure aita zeruetan** (10); **guztien aita** (12); **haien aita** (14); **haren aita** (79); **hartan aita** (12); **haurraren aita** (18); **haurren aita** (35); **hil zitzaion aita** (12); **hire aita** (71); **hire aita eta** (11); **hiru haurren aita** (9); **honen aita** (16); **honorio aita** (17); **horien aita** (25); **horien aita ameri** (19); **horren aita** (14); **inozentzio aita** (9); **izan zen aita** (11); **neskaren aita** (13); **neure aita** (18); **nik aita** (10); **nintzen aita** (13); **nire aita** (212); **nire aita eta** (12); **nola aita** (18); **noraren aita** (13); **nuen aita** (33); **oraindik aita** (9); **orduan aita** (11); **orduko aita** (9); **paulo aita** (9); **seme alaben aita** (10); **umeren aita** (12); **zegoen aita** (16); **zen aita** (165); **zen bere aita** (11); **zen gure aita** (16); **zeren aita** (11); **zeruko aita** (16); **zeure aita** (12); **zien aita** (10); **zion aita** (36); **zion aita santuari** (11); **ziren aita** (30); **ziren aita eta** (11); **zituen aita** (24); **zitzaion aita** (29); **zuela aita** (14); **zuen aita** (199); **zuen aita eta** (9); **zuen aita santuak** (9); **zuen gure aita** (9); **zure aita** (153); **zure aita eta** (18); **zuten aita** (40)

aitak agindu (12); **aitak alde** (9)

aitak ama (11); **aitak amari** (27); **aitak askotan** (11); **aitak bazekien** (10); **aitak begiak** (9); **aitak behin** (14); **aitak behin eta** (9); **aitak berak** (43); **aitak bere** (85); **aitak beste** (11); **aitak beti** (25); **aitak bezala** (16); **aitak bi** (9); **aitak burua** (9); **aitak edo** (13); **aitak edo amak** (9); **aitak egin** (21); **aitak eman** (15); **aitak erantzun** (12); **aitak ere** (70); **aitak ere ez** (10); **aitak erran** (19); **aitak erran zion** (10); **aitak esan** (77); **aitak esan zion** (19); **aitak esaten** (67); **aitak esaten zion** (10); **aitak esaten zuen** (26); **aitak eskua** (17); **aitak eta** (185); **aitak eta amak** (49); **aitak eta biok** (21); **aitak eta jesu** (10); **aitak etxetik** (10); **aitak ez** (226); **aitak ez du** (22); **aitak ez zidan** (9); **aitak ez zion** (16); **aitak ez zituen** (11); **aitak ez zuela** (9); **aitak ez zuen** (69); **aitak ezin** (15); **aitak hala** (13); **aitak hartu** (9); **aitak haurrari** (9); **aitak hori** (10); **aitak irribarre** (10); **aitak keinu** (9); **aitak maite** (9); **aitak nahi** (9); **aitak nire** (14); **aitak nola** (10); **aitak orduan** (9); **aitak semea** (15); **aitak semeari** (11); **aitak utzitako** (9); **aitak zer** (10); **baina aitak** (89); **baina aitak ez** (19); **baina gure aitak** (11); **batean aitak** (10); **baten aitak** (9); **bere aitak** (128); **bere aitak eta** (9); **bere aitak ez** (10); **da aitak** (10); **dio aitak** (21); **dit aitak** (14); **du aitak** (46); **dut aitak** (15); **egin zuen aitak** (24); **erantzun zion aitak** (13); **ere aitak** (11); **erran zidan aitak** (14); **erran zuen aitak** (12); **esan zidan aitak** (21); **esan zion aitak** (17); **esan zuen aitak** (59); **esaten zuen aitak** (16); **eta aitak** (256); **eta aitak ere** (10); **eta bere aitak** (9); **eta gure aitak** (47); **ez aitak** (10); **ezen aitak** (10); **galdetu zidan aitak** (9); **galdetu zion aitak** (13); **galdetu zuen aitak** (11); **gure aitak** (440); **gure aitak ere** (12); **gure aitak esaten** (28); **gure aitak eta** (21); **gure aitak ez** (24); **haren aitak** (22); **hire aitak** (46); **jainko aitak** (13); **jainko gure aitak** (11); **neskaren aitak** (20); **nire aitak** (97); **nola aitak** (17); **noraren aitak** (52); **orduan aitak** (20); **zen aitak** (13); **zeruko aitak** (18); **zidan aitak** (91); **zigun aitak** (16); **zion aitak** (108); **zion gure aitak** (14); **zituen aitak** (16); **zuela aitak** (10); **zuen aitak** (331); **zuen bere aitak** (10); **zuen gure aitak** (55); **zuen noraren aitak** (10); **zure aitak** (94)

aintza aitari (12); **aitarekin batera** (18); **aitarekin eta** (28); **aitarekin hitz** (15); **aitaren ahotsa** (20); **aitaren aita** (10); **aitaren aldeko** (15); **aitaren aldetik** (18); **aitaren aldetiko** (9); **aitaren anaia** (17); **aitaren antza** (9); **aitaren aurrean** (28); **aitaren batean** (80); **aitaren bila** (19); **aitaren egin** (47); **aitaren egin eta** (11); **aitaren egin zuen** (19); **aitaren egiten** (10); **aitaren esanetan** (10); **aitaren eskua** (9); **aitaren eta** (77); **aitaren eta amaren** (19); **aitaren eta semearen** (20); **aitaren etxe** (10); **aitaren etxea** (64); **aitaren etxea eskuarekin** (10); **aitaren etxean** (30); **aitaren etxera** (35); **aitaren etxetik** (10); **aitaren fusila** (10); **aitaren gorpua** (12); **aitaren heriotza** (18); **aitaren heriotzaren** (13); **aitaren hitz** (10); **aitaren hitzak** (16); **aitaren irudia** (9); **aitaren izena** (24); **aitaren jainkoa** (13); **aitaren kontra** (10); **aitaren lagun** (18); **aitaren nahia** (10); **aitaren ondoan** (22); **aitaren ordez** (11); **aitaren trumoi** (12); **aitaren trumoi ahotsa** (12); **aitarengana joan** (11); **aitari begira** (10); **aitari begiratu** (22); **aitari begiratu zion** (14); **aitari buruz** (27); **aitari buruzko** (10); **aitari edo** (12); **aitari entzun** (9); **aitari ere** (15); **aitari esan** (14); **aitari esaten** (11); **aitari eta** (58); **aitari eta amari** (12); **aitari ez** (22); **aitari galdetu** (15); **aitari zor** (9); **aitarik ez** (16); **aitarik gabe** (19); **amak aitari** (18); **baina aitaren** (18); **bere aitarekin** (33); **bere aitaren** (214); **bere aitari** (63); **beren aitaren** (10); **da aitaren** (10); **dio aitari** (9); **diot aitari** (10); **du aitaren** (17); **edo aitaren** (11); **ene aitaren** (13); **ere aitaren** (15); **esan zion aitari** (17);

eta aitarekin (13); **eta aitaren** (171); **eta aitaren batean** (16); **eta aitarengana** (10); **eta aitari** (76); **eta bere aitaren** (12); **ez aitaren** (11); **gure aitarekin** (9); **gure aitaren** (137); **gure aitarentzat** (10); **gure aitari** (62); **haren aitaren** (13); **hire aitaren** (26); **hire aitari** (10); **jainko aitaren** (11); **jainko aitari** (10); **neure aitaren** (23); **nintzen aitaren** (11); **nion aitari** (30); **nire aitaren** (152); **nire aitaren etxea** (29); **nire aitaren fusila** (10); **nire aitari** (22); **nuen aitaren** (15); **semeak aitaren** (10); **zegoen aitaren** (9); **zen aitaren** (37); **zeruko aitaren** (18); **zeure aitaren** (23); **zion aitari** (73); **zion bere aitari** (9); **zioten aitari** (15); **ziren aitaren** (14); **zituen aitaren** (9); **zitzaion aitari** (11); **zuen aitarekin** (9); **zuen aitaren** (61); **zuen aitari** (13); **zure aitarekin** (11); **zure aitaren** (62); **zure aitari** (26); **zuten aitaren** (14)

aitek eta (5); **aiten aitek** (4); **aiten batez besteko** (3); **aiten besta** (4); **elizako aiten** (3); **gure aitek** (4); **gure aiten** (6)

---

aitabitxi 1 *iz* bataioan, haurra besoetan hartzen duen gizonezkoa, aita besoetakoa, aita pontekoa. ik**amabitxi**.

Tomek beso batekin heldu zion, gero mahai gainean nigana makurtu zen eta galdetu zidan ea **aitabitxi** izan nahi nuen. Oskar Arana

Merkatari handiek biziki maite zuten, harroputza ez zelako hain zuzen ere; gogo onez onartzen zuen haien seme-alaben **aitabitxi** izatea. Jose Morales

2 *irud/hed (konfirmazio, ezkontza eta kidekoetan)*

Nire ustekabea, Joxerramon Arrigainek esan zidanean konfirmandoek ospakizunean **aitabitxi** bana behar zutela, jadanik konfirmatua noski, eta bere pontekoa ni izatea nahi zuela. Xabier Mendiguren Elizegi

Don Manuelek di-da batean egin zituen paperak; Don Anizetok zazpikia jaio zela esango zuen gero, eta Don Juan ahalguztiduna izan zen ezteietan **aitabitxi**, bere eginkizun guztiz garrantzitsuetatik propio etorrita. Xabier Mendiguren Elizegi

Amaitu du esanez Rakel eta Ruben luze barik aldarean imajinatzen dituela, eta Las Vegasen aukera hori alferrikaldu izanaz damutuko direla, eta bera **aitabitxi** aukeratu ez izanaz. Patxi Zubizarreta

Handik hiru hilabetera ezkondu ziren, Bob **aitabitxi** izan zen eta ni amabitxi. Karlos Zabala

· Horrenbestez, zaldun **aitabitxi** izendatzen dut berori, baldin eta onartu nahi badu gure erregu apala zama horren erantzukizuna berorren gain har dezan. Oskar Arana

3 ***aitabitxi-amabitxi*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) pl* ik **aita-amabitxi**.

Bataioak orain baino sarriagotan ospatzen zirenean, umeon igande goizetako jolasa izaten zen bataio irteerara joan eta haur bataiatu berriaren guraso eta **aitabitxi-amabitxiek** botatzen zituzten goxoki eta txanponak biltzea. ETC-prentsa

Besteak beste, Albert Goienetxe eta Urkixo anderea egon ziren **aitabitxi-amabitxien** artean; Jauffret Baionako gotzainak bataiatu zituen. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aitagai *iz* aita izango dena.

Eta horra non **aitagaiak**, katua bezain zuhur begi baten ertzetik ingurua arakatu eta, jabearen arrastorik ez zegoela ikusiz gero, itsumustuan hartzen zuen eskueran zuen gutzia; zela xaboia, zela argizaria, zela gantza edo zela kanario bat, eskua eransten zion guztiari, ezertxo ere gutxietsi gabe. Jose Morales

---

aitagiarreba ik **aitaginarreba**.

---

aitaginarreba *(orobat **aitagiarreba** g.er.) iz* senarraren aita emaztearekiko, edo emaztearena senarrarekiko. ik **amaginarreba**.

Haurrak aitaren etxean bizi ohi direnez, edo han bizi direla jotzen denez -eta, beraz, suhia amaginarrebarekin, **aitaginarreba** errainarekin edo emaztearen alabarekin-, haien arteko ezkontza lege naturalak debekatzen du. Iñaki Iñurrieta

Hobeto esanda, **aitaginarreba** eta errain baten gorabeherak. Unai Elorriaga

Donatienek gutunak idazten ditu lehendabizi, emazteari, **amaginarrebari** eta poliziari, kartzelan zergatik eta noiz arte dagoen galdezka. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

"Ohore kontua da", esan zion emazteari, ezkondu berritan **aitaginarrebak** pisu puska hura eskaini eta ezetz esan zuenean. Jokin Muñoz

Aitaginarrebak, neskaren aitak, etxean geldiarazi zuen eta bertan egon zen hiru egunez. Elizen arteko biblia

Segurtamena finkatzen ari zen Vianako printzearekin bazuela ikustekorik eta nola XV. mendean printze dohakabe horrek ez zuen eskuratu ahal izan Iruñeko tronua, zor zitzaion bezala, haren **aitaginarrebak**, Juan II.a Aragoikoak, bortxaz baztertu zuelakotz. Michel Oronoz

Osabak eta **aitaginarrebak** lagundu zidaten etxe barruko eskailera igotzen. Txillardegi

Txintik ere ez zuen atera bere **aitaginarrebak** eta amaginarrebak langa kendu zutenean. Aingeru Epaltza

Unibertsitatean harrera ofiziala egin ziotèn egunean, Montseren aita eta biok bertaratu ginen, **aitaginarrebaren** lagun katedradun batek gonbidatuta. Joan Mari Irigoien

Jainkoaren kutxa harrapatu zietela, bere **aitaginarreba** eta senarra hilak zirela aditu zuenean, kuzkurtu eta haurra izan zuen, erdiminak etorri baitzitzaizkion. Elizen arteko biblia

Jetrok, Moisesen **aitaginarrebak**, etxean jasoak zituen Moisesek bere ondotik bidali zituen Tzipora emaztea. Elizen arteko biblia

Anas, urte hartako apaiz nagusi Kaifasen **aitaginarreba** zen. Elizen arteko biblia

Aldi hartan Heber kenitarra beste kenitarrengandik, hau da, Moisesen **aitaginarreba** zen Hobaben ondorengoengandik banandu eta Kedex ondoan zegoen etxolatua, Tzaanaimgo artearen inguruan. Elizen arteko biblia

Moisesek esan zion Hobabi, bere **aitaginarreba** Reuel madiandarraren semeari: -Gu bagoaz Jaunak agindutako lurraldera. Elizen arteko biblia

Hainbeste kalte egin zioten bere **aitaginarreba** -amaginarreben bizitza bere esku egon zen, eta hala eta guztiz ere salbatu egin zituen: "Montreuildarrak nire etsairik handienak dira". Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Rut alarguna, atzerritarra izanik ere, Noemi **amaginarrebarekin** geratzen da, eta are honekin etortzen Belenera, hau etxera itzultzen denean. Jose Antonio Mujika

· Egoki zaindu zituen aita· **amaginarrebak** beren zahartzaroan eta Mediako Ekbatanan ehortzi. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaginarreba eta (4); **aitaginarreba zen** (4); **aitaginarrebak eta** (4); **aitaginarrebak eta errainak** (3); **aitaginarrebaren etxean** (3); **bere aitaginarreba** (9); **bere aitaginarrebaren** (4); **bere aitaginarrebari** (4); **eta aitaginarrebak** (5); **moisesen aitaginarreba** (4); **nire aitaginarrebak** (3); **nire aitaginarrebaren** (3)

---

aitagoi 1 *iz* aitalehena, leinu edo familia handi bateko burua.

Aitagoien Liburuan irakurtzen da, gizon bat aieneka ari zitzaiola guraso santu bati berak sofritzen zuenagatik. Joan Mari Lekuona

2 irud/hed

Sanz del Río, krausismo espainolaren **aitagoiak** izpiritu espainola izpiritu frantsesaren menpetasun galgarritik askatu eta izpiritu alemanera hurbildu nahi du, honi ere menperatzeke ordea. Joxe Azurmendi

---

aitagure *iz Aita gurea* hitzez hasten den otoitza.

Aitagure bat errezatu zuen, isilpean. Xabier Aranburu

Gauero **Aitagurea** errezatu eta gurutze santua egin zezala eskatu zion. Juan Garzia

Beste herri batzuetan, egun honetan, etxeko aziendei, isatseko buztan-puntak mozten zizkieten, eta ile-zurda horiek bedeinkatu eta erre, **Aitagure** bat esaten zen bitartean.

Pello Zabala

Goizero amak saski bat bete ogi eta sagar edo gaztainaz beteriko poltsatxo bat ematen zidan, aitak denok larrainean errenkadan jarri eta ozenki **Aitagurea** esanarazten zigun. Koldo Biguri

Eta **Aitagurea** kantatzen zenean, gure haurtzaroko doinu horrekin, oso hunkituta sentitzen nintzen. Herria

Gaztetako marxistari umetako katolikoak aurrea hartuko balio, berriz, halaxe eskatuko nioke Jainkoari **aitagurean**: [...]. Joan Mari Irigoien

Onenean **aitagure** zati bana egokituko litzaieke. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitagure bat** (5)

---

aitaita *(ETCn **631** agerraldi; orobat **aitita** ETCn **717** agerraldi)* **1** *iz* aitona. ik **amama**; **aitita**.

Aitaita gerran, aita lanean eta biloba soinu jotzen: Eibarko Urki auzoko Altamira baserriko hiru belaunaldi ibili ziren Cuban. Koldo Izagirre

Nire **aitaita** artzaina zen, nekazari eskolagabea, ez zen inoiz ibili fama eta aipu bila. Pello Zabala

Ingak **aitaita** judua du, New Yorken bizi da, eta idazleak iaz hiru aste egin zituen bertan. Edorta Jimenez

Laster aitaren gurasoak, **aitaita** eta amama, etorri dira. Urtzi Urrutikoetxea

Azken agurrak hasi dira, bakarrik alde egin dute **aitaitak** eta amamak, amaordearen familiak baino apur bat lehenago. Urtzi Urrutikoetxea

Anastasio Erkiagak, **aitaita** greziazaleak kontatuta, banuen Herkules heroiak egin behar izan zituen hamabi lanen berri, eta ondo asko nekien bat Aujias erregearen ukuiluak garbitzea izan zela. Joxean Sagaztizabal

Sinesgaitza da horrelako itxurarekin gurasoak eta **aitaita**-amama guztiak irandarrak izatea, baina egia da, eta gainera Nasser harro sentitzen da bere jatorriaz. Jon Arretxe

Bizirik **aitaita**-amamengan, bizirik alde bietakoengan. Edorta Jimenez

Batzuetan arrantzan aritzen ziren, pita amuarekin luzatu eta han egoten ziren, aitaren ofizioa ikasten eta **aitaitarena**. Joseba Sarrionandia

2 *aitaita-amama*

Sinesgaitza da horrelako itxurarekin gurasoak eta **aitaita-amama** guztiak irandarrak izatea, baina egia da, eta gainera Nasser harro sentitzen da bere jatorriaz. Jon Arretxe

---

aitaizun *iz* aitaordea.

Aitaizuna kalitu zioten gaiztaginen harrapatzeko sartu zen LAPDan. Itxaro Borda

Laborari gizon zintzoa izan da eta **aitaizun** baliosa, girixtino eginbideeri guziz jarraikia. Herria

---

aitajaun **1** *iz* aitona; aitabitxia.

Gure amaren ama zenari "amandrea" esaten genion guk, eta **"aitajauna"**, berriz, amaren aita zenari. Joxerra Garzia

Eta gaitzerdi **aitajaun** irudikatuko balute, baina ez, sasoi beteko gizonezko irudikatuko dizute gehienek. Joxerra Garzia

Larunbat gauerdian zein haize zebilen jakiteko gure **aitajaunak** lastargia pizten zuen, kea nora, haizea hara...! Pello Zabala

Duela hilabete batzuk nire lehengusu baten bataioan **aitajauna** izan nintzen. Harkaitz Cano

Marlon Brandok ***Aitajauna*** filmean bezala. Hasier Etxeberria

Euskarak ez du horrelakoetan generorik markatzen, eta batera zein bestera egin zezaketen, berez, gure zaharrek, eguzkia amandre zein **aitajaun** irudikaturik. Joxerra Garzia

2 irud/hed

Aitajaun itzaltsua hartu du, gainera, idazle bataiatu berriak, Joseba Sarrionandiak egin baitio hitzaurrea *Eta handik gutxira gaur* liburuari. Berria - Kultura

---

aitakeria *(ETCn **51** agerraldi, horietatik **28** azken sei urteetan) iz* paternalismoa.

Zuzendaritza Batzordekoek ezker-eskuin mugitu zuten burua, **aitakeria** ulerkorraz. Jon Alonso

Horrek eraginiko ziurtasun gabeziaren kariaz, estaturik gabeko nazioenganako ohiko jarrerak **aitakeria** eta mehatxua dira. Markos Zapiain

---

aitakide *iz* norbaiten aitabitxia bere aita, ama edo amabitxiarentzat; norbaiten aita bere aitabitxiarentzat edo amabitxiarentzat; aitak eta aita besoetakoak elkarri ematen dioten izena.

Jainkoak lagun dagidala! -apaizak oihuka- hemen haatik hori Tirante Zuri hori! emadazu honantz, **aitakide**; hortxe aurkitu dudala baiteritzot pozgarrien gordailua eta denbora-pasagarrien meatze. Patxi Ezkiaga

Emadazu, **aitakide**, poz gehiago ematen baitit hori aurkitu izanak, Florentziako oihalez egindako sotana eskainiko balidate baino. Patxi Ezkiaga

Jarrai aurrera, **aitakide** jauna, berandutzen ari du eta. Patxi Ezkiaga

Egiatan diotsut, **aitakide** jauna bere egikeraz hauxe da munduko libururik hoberena. Patxi Ezkiaga

---

aitakiro *adlag* aitaren eran.

-Tira, mutilak -esan zuen **aitakiro**-. Fernando Rey

---

aitakoi **1** *izond* aita onari dagokiona.

Kartzela honetako zuzendariak badu joera presoan aurrean, moduluz modulu egiten dituen bisitetan-eta, aurpegi **aitakoia** eta itxura ulerkorra azaltzeko. Jokin Urain

2 (adizlagun gisa)

Nik hogeita bost urte bakarrik nituen eta zahartuxeak iruditu zitzaizkidan, garaiz kanpoko igaliek duten kolore zurbil eta ajatuarekin, hain urduri eta adeitsu emakume gazte batekin zeudelako eta hain **aitakoi** aldi berean, aholku bat beti pronto ezpainetan. Joxean Agirre

Horrelakoetan, gizasemeok begiradarekin bakarrik zuzendu ohi gatzaizkio emakumeari edo, oso gaztea bada, babesle eta **aitakoi** hurbiltzen. Joxean Agirre

---

aitakume *iz adkor*

Petrolioa aurkitu zenetik bigarren edo hirugarren belaunaldia da oraingoa, **aitakumeak** denak, batere heziketarik gabeak, ez zaizkie irabaziak interesatzen, nahikoa eduki dutelako beti. Pako Aristi

---

aitaldeko *iz* ahaideez mintzatuz, aitaren aldekoa. ik **amaldeko**.

Egi-egia da hau guztia, eta neronek ere gogoan dut, nola esaten zidan nire amonak, **aitaldekoak**, buruko agurgarriz jantzitako andere horietakoren bat ikusitakoan:_"Kintañona anderea dirudi hark, enetxo". Patxi Ezkiaga

---

aitalehen **1** *iz* pertsona itzaltsua, komunitate batean eragin eredugarria duena. ik **patriarka**.

Hasieran, eskola errealistaren **aitalehentzat** hartu zuten denek. Jose Morales

Han dago, Graçako muinoa, dorre garaienaren aurrean, eta Campo de Santa Clararanzko lur beheratua, han egin zuen kanpamentua On Afonso Henriquesek bere gizonekin, gure gizonekin, nazioaren **aitalehenak**, zeren hauen arbasoak, goizegi jaio izanaren kariaz, ezin izan baitziren portugaldarrak. Jon Alonso

Munduarekiko nire eskemetan Australopitekoa **Aitalehena** zen, Patriarka, euskararen lehen hiztuna, eta berarekin gu denok zilbor-hestez loturik. Joxean Sagaztizabal

Gizon autoritario hark, ondorengorik gabeko **aitalehen** hark, inguruan aholkulariak, bizkarzainak, abokatuak eta bankariak baino ez zituen gizon hark, ez zion, inondik inora, era hartan zabaldu inori bihotza; Grosrouvreri bakarrik, beharbada; baina ez, noski, hain hunkiturik eta hain zintzo. Jon Muñoz

Kolko Mitxoleta zen gure arteko onena, gure argi gidaria, Belengo izarra; gure **aitalehena**, jakinduriazko iturri agortezina, begiratu beharreko ispilua, eredu gorena, aita pontekoa. Jon Alonso

2 irud/hed

Metamorfosiak daude Piztiaren izena liburuko bizpahiru ipuinetan, eta deabrua da -metamorfosiaren **aitalehena**- bertako glosen ardatza. Anjel Lertxundi

---

aitama *(ETCn **1.411** agerraldi)* **1** *iz pl* batez ere *ipar* aita eta ama, gurasoak. ik **aitetama**.

Goresmen beroenak **aitama** horieri eta bizi zoriontsu bat bi ñiñi ttipieri! Herria

Gure goresmen eta agurrik beroenak **aitama** eta etxekoeri eta Maider haundi dadiela ahalik eta hobekiena David anaiarekin jostatzeko. Herria

Mutiko piloa zegoen aurrean, **aitamak** ere ugari. Joseba Sarrionandia

Noiz, non sortua, **aitamak**, anai-arrebak, soldadogoa, apezgoa. Marzel Etxehandi

Horregatik, gizasemeak bere **aitamak** utziko ditu eta emazteari elkartuko zaio. Elizen arteko biblia

Ohoratu **aitamak**, Jaunak zeure Jainkoak agindu bezala, luzaro bizi eta zoriontsu izan zaitezen, Jaunak zeure Jainkoak ematen dizun lurraldean. Elizen arteko biblia

Soldado bat hiltzen denean, ez da bakarrik bera hiltzen: **aitamak**, haurrak, ahaideak, ere bai, gisa batez. Herria

Duela 70 urte utzi zuen Salaberriko bere sor etxea, **aitama**, haurride eta lagunak, Uztaritzeko serora komentuan sartzeko. Herria

Mesedez, utzi ene **aitamei** zuen artean bizitzen, Jainkoak zer egin nahi didan jakin dezadan arte. Elizen arteko biblia

Aitamek hasi lana nahi du segitu. Herria

Gaurko egunean, jendartea gisa guzietarat ari baita kanbiatzen, aldaketa hau ere heldu zauku, Urtatsetik harat legezkoa izanen dena: haur sortu berriari, orai arte beti aitaren deitura emaiten baitzen, amarena emaiten ahalko zaio, **aitamek** berek hautatu behar. Herria

Jin da auzia eta denboraren buruan delako **aitamek** aitortu dute beste auziperatu guziak gezurrez zituztela salatuak, mendekio hutsez eta tzarkeriaz. Herria

Maitatu ezin izan zuten **aitamen** oroitzapena. Koldo Izagirre

Aitamen etxera eraman dut. Daniel Landart

Batzuentzat erremedio bilakatzen da moralki biluztea, hala nola idazle emaztea, jadanik ikusia Pivot-en emankizunean, salatzen dituela bere **aitamen** eta anai baten gaixtakeriak. Herria

Etorriko den urte berriak eman dezola haurtxoari zorion eta goxotasun **aitamen** gerizan. Herria

Ene **aitamen** sendimenduez deus guti nekien, haien fedea aldiz etxeko ele eta elizarako urratsetan idatzia zen. Piarres Aintziart

Gehienetan ez dute gozatu familia baten goxotasuna ez eta **aitamen** amodioa. Herria

Beraz gure goraintzirik hoberenak eskaintzen ditugu bi aldetako aitatxi-amatxieri bai eta **aitameri**. Herria

Guztiz ezinezkoa dela haur bat egoera zeharo naturalean egon daitekeenik pentsatzea; hain zuzen ere, jaio den unetik aurrera bizia eman diotenen boterearen eta agindupean dagoelako (**aitamenen** pean, noski) edo jaten ematen diotenen pean. Esteban Antxustegi

2 (izenondoekin)

Goresmenak **aitama** uroseri eta familiako guzieri eta osagarrizko handitze bat Florian ttipiari. Herria

Beren **aitama** presoneren alde. Herria

Aitama zaharrak haurrek lortu situazioneez harro ziren. Itxaro Borda

Bainan hor daude ikastolak eta bertze, hor **aitama** gazteak, hor idazleak, hor ere euskaldun gazteen oldarra. Herria

Xabier nafarra zela badakigü: **aitama** nafarretarik sortürik Nafarroan, eta hor hazirik, horko erresuma beregain zagoalarik. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitama eta** (6); **aitama gazteak** (3); **aitama gazteeri** (10); **aitama gazteeri eta** (6); **aitama uroseri** (10); **aitama uroseri eta** (6); **beroenak aitama** (5); **goresmen beroenak aitama** (3); **goresmenak aitama** (18); **goresmenak aitama gazteeri** (7); **goresmenak aitama uroseri** (9); **gure goresmenak aitama** (5)

---

aitamatu, aitama(tu), aitamatzen da *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) ad* gurasotu.

Aitamek, **aitamatu** direnetik, ez dakite gehiago zer den amodioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aitamatzeak zenbait gurasori hizkuntza-jokaeretan jakinaren gaineko aldaketa ekarri die. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hiztun horiek gero **aitamatu** direlarik, seme-alaben hizkuntza sozializazioa beretakotutako mintzairan egin nahi izan dute, eta horrela hasi da hainbat familiatan euskara (berr) etxekotzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina erdi betetzen baldin bada, orduan bai joanen dela bestea aise lasterrago, eta horretan sartuak gara, ikusten duzularik Erkidegoan euskaldunak %51 direla bost urtetarik eta hogei urte artio, horrek erran nahi du **aitamatuko** direlarik D ereduan sartuko dituztela haurrak. ETC-prentsa

---

aitañi *iz* aitona.

Hau Mendibile Elizagako seme bat zen, ene **aitañiren** kosia, eta Mitikile Goihetxeko jabea, gisa horrez Bernard de Goyhenetche Matalaz famatüaren ondokoa. Herria

Zertan gira hurak beno gütiago? Haatik, apez hanitx bazüelarik ere, lan hori egiten züen, mahometar xaharren gisan, gure **aitañi**-amañiek. Herria

---

aitaorde *(orobat **aitaordeko** g.er. eta **aitaordezko** g.er.) iz* aitatzakoa, aitatzat hartzen den gizonezkoa.

Sorayaren besoetan, lipar batez, haien aita bihurtzen da: aitatzako, **aitaorde**, itzaletako aita. Oskar Arana

Ez zen halako hitzik aterako Migelen aitatxiren ahotik, ezta haren **aitaorde** Tomas Atondorenetik ere. Aingeru Epaltza

-Hori ez dut aita, **aitaordea** baizik -une batez lurrera begira gelditu zen Angela, muturturik-. Alberto Ladron Arana

Nire **aitaordea** baino aise ere gazteagoa zen, dena den. Aingeru Epaltza

Bere lehengusina Hadasaren, hau da, Esterren **aitaordea** zen. Elizen arteko biblia

Pentsatzekoa denez, ustekabe ederra hartu nuen Angelak italiar bizardun hura **aitaordea** zuela jakinik, sinesgaitz samarra egiten baitzitzaidan tipo bitxi hura halako aingeru baten aita (edo **aitaordea** behinik behin) izatea. Alberto Ladron Arana

Aitatxiri inoiz gutitan aditu nion **aitaordearen** alabantzarik. Aingeru Epaltza

Nire **aitaorde** dirudunak bere alabatzat hartu ninduen. Eduardo Matauko

Poliziak egingo zituen joan-etorriek eta ikerketek ez ote zizkioten **aitaordezkoarekiko** harreman beroak hoztuko? Gotzon Garate

Hura ez zen pozten amaren eta **aitaordekoaren** arteko konponezinekin. Juan Kruz Igerabide

---

aitaordeko ik **aitaorde**.

---

aitaordezko ik **aitaorde**.

---

aitaponteko ik **aita 2**.

---

aitapontekotasun *iz* aita ponteko izateko nolakotasuna.

Idazle galiziarren artean, gainera, halako **aitapontekotasuna** aitortua zuen, zaharren artean azkenotakoa zelako. Berria - Kultura

---

aitaren 1 *iz/interj Aitaren* hitzaz hasten den otoitzaren izena; harridura adierazteko interjekzioa.

Aitaren, semearen! Hau ere entzun egin behar! Emakume honek okerrera hartzen du dena. Patxi Iturritegi

Minutu baten buruan, Christophek berriz egin zuen "**Aitaren**" eta erran zidan: Daniel Landart

Aitaren: bekokitik bularrera eta ezkerreko besaburutik eskuinekora egiten den gurutzearen seinalea. Patxi Ezkiaga

Aitaren eta semearen egiteko tentazioa izan du, baina parean duen begi pareak kendu dio gogoa. Arantxa Iturbe

-Aitaren eta Semearen...! - protestatu zuen amak, ohi baino sutsuago eta beroago. Joan Mari Irigoien

2 *aitaren batean* oso denbora gutxian.

Ez da batere ergela; **aitaren batean** aditzen du dena. Mirentxu Larrañaga

Txitxikov **aitaren batean** biluzi zen, eta Fetiniari eman zizkion janzki guztiak, bai kanpokoak eta bai barrukoak, eta Fetiniak -berak ere gabonak emanik- han eraman zituen estalgarri busti haiek guztiak. Jose Morales

Ez zekien, ordea, Sangarre, Ivan Ogareffen espioia, eszena haren xehetasun batzuez ohartu zela, dena **aitaren batean** gertatu bazen ere. Karlos Zabala

Erreketak, lehorteak, lur axala eurien eta haizeen mende uzten dute: hautsak eta lur-hondarrak erreka eta ibaietara doaz, **aitaren batean**. Pello Zabala

3 *aitaren egin*

Egiazkotzat jo zituen bere hitzak, **aitaren egin** eta isilik geratu zen, begiak itxirik, antzerki hartan zentzumen guztiez parte hartu nahi ez zuela adieraziz. Felipe Juaristi

Altxatzerakoan belauniko gelditu zen, eta **aitaren egin** zuen, argi ahularen konoan ikusi nuen. Koldo Izagirre

-Behin eta berriz "**aitaren" eginda** ere; ez du ez nire buztanik bere bizarretarako izango gero, eta eman beharko dit bai nire isatsa; lotsatzeko da eta, hemen lurrean botata nire senarrarena ikusita; orrazea alegia, nire isatsean zintzilik jartzen nuena. Patxi Ezkiaga

Aktoresa bat are okerragoa iruditzen zitzaion **aitaren egiten** zuen emakume bat baino. Fernando Rey

Aitaren egiteko zorian egon zen. Jon Muñoz

Arrautzak jarritakoan, **Aitaren egin** eta Purgatorioko arimen alde errezatu behar da. Pello Zabala

Azken errespontsoa luze agin zitzaion Markoxi. "Zoazte Jaunaren bakean" entzunaz batera, **aitaren egin** eta eliz atarirako bidea hartu zuen, kaxa atera baino lehen. Joxemari Urteaga

Gorritu da, **aitaren eginez** egin du aterantz, urten egin du. Koldo Izagirre

Amak, berandu baina hasieratik egin behar zuena hori zela gogoratu izan balu bezala, **aitaren egin** zuen presaka. Berria - Kultura

Carmen Guerra alderdikideak, berriz, **aitaren egin** zuen, Konstituzioaren liburukotearen aurrean. Berria - Euskal Herria

Aitaren egin, eta gelatik irten ginen. Irene Aldasoro

Aitaren egin zuen harrira arrimatu aurretik; zerurantz goratu zituen begiak gero. Karlos Linazasoro

"**Aitaren" egin** zuen Aita Sainduak eta erran zidan: Jauna! Piarres Xarriton

4 *aitaren egin orduko*

Gero, ispiluaren aurrean alkandoraren paparrekoa jantzi, sudurzuloetatik ateratzen zitzaizkion bi iletxo kendu, eta, **aitaren egin orduko**, txilar koloreko frak izpildun baten barruan sarturik zegoen. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren batean (80); **aitaren egin** (47); **aitaren egin arte** (3); **aitaren egin eta** (11); **aitaren egin gabe** (1); **aitaren egin genuen** (1); **aitaren egin orduko** (1); **aitaren egin zidan** (1); **aitaren egin zuen** (19); **aitaren egin zuten** (1); **aitaren eginarazten dien** (1); **aitaren eginda** (2); **aitaren eginda ere** (1); **aitaren eginen zuen** (1); **aitaren eginez** (8); **aitaren eginez egin** (1); **aitaren eginez ekin** (1); **aitaren eginez eraso** (1); **aitaren eginez eta** (1); **aitaren eginik** (1)

---

aitarenka *adlag Aitaren* esanez.

Burua makur, **aitarenka**, Jaungoiko on bat imajinatzeko ahalegin itzela egiten nuen, aittitte on bat izango zelakoan bizar zuriarekin. Joseba Sarrionandia

Norbaitek esan ziolako oso katoliko eta elizkoia zela eta buru-makurtu handi bat egin eta **aitarenka** hasten zela eliza bat ikusten zuen bakoitzean. Fernando Rey

Aitarenka edo errezuka jardutea, ez da igoeretarako behar besteko arrazoia. Berria - Ekonomia

---

aitasaindu ik **aita 3**.

---

aitasantu ik **aita 3**.

aitasantutza *iz* aita santuaren eginkizuna eta kargua.

Gregorio Handiari dagokionez [...] *Praefectus Urbi* izan ondoren, administrazio sekularra utzi egin zuen eta, Kasiodororen jarraibideari segitzeko, Erroman zuen arbaso-jauregia monasterio bihurtu zuen; honela, bere itxaropenaren eta desiraren kontra, **aitasantutzaren** sortzaileetako bat bihurtu zen. Iñaki Mendiguren

Horrelako tragediarik ospetsuena Hildebrandoren **aitasantutzaren** historia da, eta Azterlan honen lehenagoko pasarte batean ikusi dugu nola Hildebrando amildegira eraman zuen itxuraz ezinbestekoa zen kausa eta efektuen kateaketak. Iñaki Mendiguren

1414 eta 1418 artean Europa kristautu guztia egon zen batzar erlijioso-politiko handi baten mende, bilkura horrek, izan ere, azkenean **Aitasantutzaren** Zisma egoera samingarriari bukaera ematen zion bitartean, mahai gainean jarri baitzuen -oraingoan inolako emaitza positiborik gabe- Elizaren barne-erreforma erabateko baten premia eta exijentzia: Konstantzako Kontzilioa. Santiago Iruretagoiena

Aita santuak berak deitu zituen ospakizun honetara, 1228. urtean, bere **Aitasantutzako** bigarren urtean. Askoren artean

Asisen emana, abuztuaren 9an, gure **aitasantutzako** hamaikagarren urtean. Askoren artean

---

aitasantutze *iz* aita santu bihurtzea.

Trilioi bat lagunen ezkontza, jaunartze, **aitasantutze** eta gainerako sakramentuenak ospatzeko toki gaitzak. Edorta Agirre

---

aitasantuzale *iz* aita santuaren zale den pertsona.

Azkenean, sukarraren eraginez eldarnio bizitan, hil baino pixka bat lehenago oihuka aitortu zuen higanota zela; are gehiago, bere anai-arrebak gupida gabe garbitu zituzten **aitasantuzale** haiek guztiak madarikatu zituen. Martin Anso

Sedan-en errefuxiatu zen, **aitasantuzaletzat** hartu zuten, eta hil egin nahi izan zuten. Juan Martin Elexpuru

---

aitaso *iz* aitona.

Egun oroz bermatzen baita, elkarrekin izan duten iloba, Sebastian gure Erregea, hain sainduki altxatzen, non uste izateko den printze horrek gaindi ditzakeela bere **aitaso** eta arbaso guztiak. Piarres Xarriton

Aitasok aberaski errezibitu zitinan Pierra eta Cassie anderea. Itxaro Borda

Amorru eta suak txigorturik, odol-zolda gatzatuz gainestali eta hanturik, karbunklo halako begiz, Pirro infernutiarrak Priamo **aitaso** zaharra bilatzen du. Juan Garzia

Bere **aitaso** xaharraren etxean jin zen mundurat, Jatsu-Ithurraldian, 1838ko otsail goiz batez. Patziku Perurena

Jokoa alde nabarmen, Pirrok Priamori ekin, eta huts egin du amorruz; baina haren ezpata-ukaldiaren haize-zafradaz **aitaso** erkindua hor doa lurrera. Juan Garzia

---

aitasotu, aitaso(tu), aitasotzen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* da *ad* aitondu. ik **amondu**; **aitona-amondu**.

"Ikusten dugu gizon bat **aitasotu** denean Etxaintzinean jarririk alki baten gainean Bere haurrak ezarririk bizi molde onean Ilobaso xume bati dagola solasean". ETC-literatura, saiakera

---

aitatar *izond* aitaren itxura edo joerakoa.

Eta semea, naski, **aitatar** ! -erran zuen amak, kezkati. Daniel Landart

---

aitatasun **1** *iz* aita izatearen nolakotasuna; aita bere seme-alabekin elkartzen duen lotura.

Lana, **aitatasuna**, familia. Koro Navarro

Ezkontza publiko eta erazkorik gabe, seme-alabatza kontu guztiak ezerezean geratuko lirateke; amatasuna, beti agerikoa; **aitatasuna**, aldiz, inoiz ere ez. Andres Urrutia

Labur esanda, 1989.urtean Annie Parmentier-ek Marcel Martinen **aitatasuna** aldarrikatu zuen bere alaba Isabellentzat Auzitegiaren aurrean. Ramon Saizarbitoria

Azen ontzeko, komisario politikoa zen eta, zer gerta ere sobera kantatzen ez bazuten ere, saratar gutik onesten zuten gobernu haren legea indarka inposatzeko etorria zenak ez zuen, iduriz, harekin ezkontzeko ez eta **aitatasunaren** aitortzeko xede izpirik. Elena Touyarou

Desiratu gabeko **aitatasuna**. Bego Montorio

Alde batetik, Annie Parmentier antzezle ohia, bere alaba Isabellen **aitatasuna** Marcel Martini egozten ziona, eta, bestetik, Hélène Daudet, haren alargun gaztea, aztarna guztien kontra, bera ere senarrak beti eutsi zion ezezkoari irmo atxikitzen zitzaiona. Ramon Saizarbitoria

Harryk uko egin zion **aitatasunari**. Oskar Arana

Baina aita ez zegoen **aitatasunaren** esperientziarik ez zuèn gizon haren aholkuak entzuteko prest: [...]. Joan Mari Irigoien

Aitatasunaren ikerketa mugatu egin zen, ez, ordea, arrazoi moralen eraginez, baizik eta prestutasun gutxiko emakumeek gezurretan salatutako gizonen ohorea salbu uzteagatik, alegia, jabegoa salbu edukitzeagatik. Ramon Saizarbitoria

Isabelle sortu zen garaian, haren amak aktore eta kantariaz gainera bazuen beste maitalerik ere, eta beste hari, harreman estuagoak edo iraunkorragoak zituelako, egotzi zion **aitatasuna**. Ramon Saizarbitoria

Bere jainkozko **aitatasunaren** egitez bere baitan biltzen da berezko adimenez, eta bere burua osotasunean kontenplatzen duenean, argi eta garbi aztertzen du bere betierako izaeraren leizezulo esentziala. Joan Mari Lekuona

Oso sakon sartu beharko litzateke haren barruan **aitatasunezko** nahitasunen bat topatzeko. Josu Zabaleta

Gizonek harriturik hartzen ninduten, altxatzen ninduten eta kontu batzuk ere egiten zizkidaten, eta ni, falta zitzaidan **aitatasun** dosia jasorik, pozarren itzultzen nintzen amarengana. Patxi Zubizarreta

Lan erreforma aurrera doa eta **aitatasun** baimena luzatzeko bi aukera proposatu dizkie Espainiako Gobernuak patronalari eta UGT eta CCOO sindikatuei. Berria - Ekonomia

Bikote homosexualen **aitatasun** edo amatasun gaitasuna ukatzen dutenek umeak jarri ohi dituzte aitzakia bezala euren arrazoiak nabarmentzeko. Berria - Harian

Honako eskubideak bermatzeko: osasun eskubidea, komunikazio eskubidea, hizkuntz eskubidea, hezkuntza eskubidea, ama eta **aitatasun** eskubidea eta askatasunerako eskubidea. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Gizakiaren anaitasuna Jainkoaren **aitatasunetik** zetorren. Iñaki Mendiguren

Niri zegokidan Gertakarietako kazetari saldoarendako izendapen gordin horren **aitatasuna**. Aingeru Epaltza

Mississippiko eta Chicagoko bluesman askok rock-and-rollaren **aitatasuna** aldarrikatu ahalko lukete, eta baita Bill Haleyk, Little Richardek eta rockabillyaren sustatzaile ugarik ere. Berria - Kultura

Kreazio orijinala edo obra erabat pertsonala izatea baita idazki baten **aitatasuna** erabakitzeko irizpidea. Askoren artean

Hantxe esku hartu zuten Analisiaren benetako bi sortzaileak: N eta L, Newton eta Leibniz, aita etsaiak, beren **aitatasuna** onartua izan zedin elkar suntsitzen ibiliak! Jon Muñoz

3 ***aitatasun baimen***

Aitatasun baimena luzatzeko bi modu proposatu ditu Madrilek. Berria - Ekonomia

Aitatasun baimena amaitu eta eskolak ematera itzuli zenean jakin genuen hori. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aitatasun baimena (4); **amatasun eta aitatasun** (3)

---

aitatiar *izond* aitaldekoa, aitaren antzekoa.

Zuk, aita, egiaren asmatzaile horrek, zuk damaizkiguzu agindu **aitatiarrak**, eta zure liburuetan, oi guren, erleek baso loretsuetan dena zurgatzen duten bezala, guk ere urrezko hitzak bazkatzen ditugu, urrezkoak, beti ere bizitza iraunkorraren txit duin direnak. Xabier Amuriza

Hain sentimendu **aitatiarra** erakutsirik, bogatir bati dagozkion balentriak egiten jarrai zezan uzten zion Mokii Kifovitxi. Jose Morales

Estatu mota ezberdinak bereizten ditut: monarkia, aristokrazia, demokrazia, aginte **aitatiar** eta despotikoa; nola ezartzen diren erakusten dut eta euren arteko abantailak eta eragozpenak alderatzen ditut. Esteban Antxustegi

Eta semea, naski, **aitatar**! -erran zuen amak, kezkati. Daniel Landart

Bereizketa honetatik bi Estatu mota sortzen dira: bata naturala, **aitatiarraren** eta despotikoaren kasuan bezala; eratua, bestea, politiko ere deitzen duguna. Esteban Antxustegi

Besaulkia arrunta da itxuraz, **aitatiarra** eta erosoa dirudi. Monika Etxebarria

---

aitatto ik **aitatxo**.

---

aitatu, aita(tu), aitatzen du *ad* aipatu.

Erlojuari begiratu zion, seiak hogei gutxi, seietan zen hileta, berandu ailegatuko ziren baina ez zuen ezer **aitatu**. Berria - Kultura

Dendan izan zenik ere ez zuen **aitatu**. Joxemari Urteaga

Harremana etetea, ezta **aitatu** ere, ia ez diogu elkarri hitzik egiten eta. Eskarne Mujika

Ezkondu eta eliz-sartzeko kontua **aitatu** zidatenean, argi asko esan nion entzun nahi izan zuen guztiari: "nahi ordurako ez naiz gizonarekin lo egiten jarri!". Arantxa Iturbe

Gaurkoa bezalako egunetan Idoiaren ama damutu egiten da alabari gerra zibilari buruzko kontuak **aitatu** izanaz. Eider Rodriguez

Aitatzeko datorrena Landakandak **aitatuko** du ondoen ondorengo urteetan, Lajaren lagun dela. Iñigo Aranbarri

---

aitatxi *(orobat **aitaxi** g.er.) iz* aitabitxia; aitona. ik **aitona**; **aitaita**; **aitita**; **aitaso**; **amatxi**.

Aitatxi ez zen inoiz baroitu, are gutiago apezpikutu. Aingeru Epaltza

Lo txarrekoa omen zen **aitatxi**; eta isiltasun betea behar omen zuen loak hartzeko. Txillardegi

Aitatxik, erran berri dut, zortzi urte baizik ez zituen. Aingeru Epaltza

Aitatxik ere, bere aldetik, gero eta arta gehiago eskatzen zigun. Daniel Landart

Egun hartan irabazi zuen **aitatxik** bere izengoitia: handik aitzina, Migel Antsa gabe, Migel Mailu izanen zen toki orotan eta jende ororendako. Aingeru Epaltza

Emakumearen **aitatxik** -edo birraitatxik, ez naiz zehatz-mehatz oroitzen- gerla trofeo gisa ekarri omen zuen Marokotik. Aingeru Epaltza

Aitatxiri inoiz gutitan aditu nion aitaordearen alabantzarik. Aingeru Epaltza

Abiadura handian diruz okituko zen, herrira itzuliko gero, eta Maritxu dendari gaztearekin ezkondurik, **aitatxiren** etxalde abandonatuan laborantzan plantatuko. Itxaro Borda

-Zure **aitatxiren** testamentua da. Elena Touyarou

Hire **aitatxiren aitatxiren** aitaren denboretan agitu zuan hori. Aingeru Epaltza

Aitatxirena egin du Jakes Haundiak, bainan kondatu duen istorioa ez dute denek sinetsi. Herria

Nik sei urte nituela, hil zen **aitatxi** Tiburtzio Burnetenean. Ana Urkiza

Etxean denek beti irakurri izan dute, ene **aitatxi**-amatxiek, amak eta bereziki aitak. Ana Urkiza

-Ni hemen sortua naiz, baina **aitatxiren aitatxi** ez dakit nongo basaburutako malkarpekotarra nuen. Aingeru Epaltza

Aitatxi Migelek ez zidan inoiz argitu nola egin zituen Joanes Albretekoak bere amaren ezagutzak. Aingeru Epaltza

Kartzelarako burdinez aparte, bertze mandatu bat hartu zuten hiriko arotzek **aitatxirengandik**: lau kanoi handi, kokaleku finkoetan, gazteluko alde bakoitza zaindu zezaten, eta bertze horrenbertze kulebrina, txikiagoak, lekuz aldatu ahal izateko erasoa nondik heldu zen. Aingeru Epaltza

Aitatxi zenak, kurutzefikari loturik, nigar malkoak zeriola, kantatu zuen "La Marseillaise"en lehen bertsua. Herria

Aurpegia **aitatxi** gozo batena du, bi bizar-hegal xuriez matelak loreztaturik. Michel Oronoz

Haste hartan, iduri zuen bazuela bestek ez duten zerbait, gutarteko aire bat, **aitatxi** gozo baten itxura edo holako zerbait. Herria

Etxean denek beti irakurri izan dute, ene **aitatxi**-amatxiek, amak eta bereziki aitak. Ana Urkiza

Ezen oroit gaiten Juan Pedro Aguirre-k zuela egin **aitatxi** lana. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Dena den, goresmenak aita ama **aitatxi** amatxi eta familia guziari eta osagarrizko handitze bat seme ttipiari. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aitatxi amatxi (9); **aitatxi amatxiak** (21); **aitatxi amatxiak ahantzi** (3); **aitatxi amatxiek** (9); **aitatxi amatxien** (6); **aitatxi amatxieri** (17); **aitatxi amatxieri eta** (4); **aitatxi batek** (3); **aitatxi bernardo** (5); **aitatxi bernardok** (3); **aitatxi bezala** (4); **aitatxi edo** (4); **aitatxi ere** (5); **aitatxi eta** (32); **aitatxi eta amatxi** (8); **aitatxi eta amatxiak** (3); **aitatxi eta amatxiren** (5); **aitatxi ez** (14); **aitatxi ez zen** (4); **aitatxi gozo** (4); **aitatxi migel** (5); **aitatxi migelek** (7); **aitatxi peio** (4); **aitatxi zen** (3); **aitatxi zenak** (3); **aitatxiren aitatxi** (3); **aldetako aitatxi** (5); **aldetako aitatxi amatxieri** (4); **bere aitatxi** (5); **beren aitatxi** (5); **bi aldetako aitatxi** (5); **edo aitatxi** (5); **ene aitatxi** (13); **ene aitatxi bernardo** (4); **ere aitatxi** (3); **eta aitatxi** (22); **eta aitatxi amatxiak** (3); **eta aitatxi amatxieri** (6); **gure aitatxi** (7); **haren aitatxi** (4); **nuen aitatxi** (4); **zen aitatxi** (9); **zure aitatxi** (17); **zuten aitatxi** (3)

---

aitatxino *iz adkor iz* aitatxia.

Nozbaiteko gure **aitatxino** heiek edo heien haurrideak bizi nahiak manaturik nola etorri ziren leku arrotz huntarat gogoa amentsez beterik eta bihotza hain segur ez sobera alegera, beren sort lekuan nigarretan utziak zituzten aitama, haurride eta adixkide heiek gogoan edo berdin bihotzeko maiteno batzu gehiago ikusi ez zituztenak. Herria

---

aitatxitu, aitatxi(tu), aitatxitzen da *ad* aitatxi bihurtu.

Eta gainera, aita lehen aldikoz **aitatxitu** zen eta guk ere bagenuen orain iloba bat. Daniel Landart

---

aitatxo *(orobat **aitatto** g.er.) iz adkor* aita.

Hiru langile horien **aitatxo**, 1898 etan hasia zen lukinka eta tripotxak egiten. Herria

-Baina **aitatxo**, amatxok dio ez zaiola jaramonik egin behar hitz egitera datorren kaleko jendeari. Lopez de Arana

Baina orain, **aitatxo**, aholkua erregutzen dizut. Itziar Otegi

Jamaikan autoritate bat da, DJ guztiek Daddy Roy (**Aitatxo** Roy) deitzen diote, berak hasitako estiloarengatik. Berria - Kultura

Hori besterik, **aitatxo**, ez al duzu kontatzeko? Xabier Olarra

- **Aitatxo** ez al da etorriko niri ondo lo egin esatera eta musu ematera? Lopez de Arana

-Ez dut ezer ikusten, **aitatxo**. Mirentxu Larrañaga

Aitatxok esaten du isiltasunak arima garbitzen laguntzen duela, Jainkoaren hitza entzuteko prestatzen gaituela. Oskar Arana

Eman al dio **aitatxok** pastillaren bat? Koro Navarro

Haren **aitatxok**, alderdikidea izaki, auzoetako aldizkari haren zuzendari izendatu berri zuen. Unai Iturriaga

Goxo-goxo zoaz **aitatxorekin**, ez da hala? Iban Zaldua

Baina Mariak esan zien gauza berezi bat ekarri zuela **aitatxorentzat** eta amatxorentzat, seguru asko oso gogoko izango zuten zerbait, eta bere fruitu lehorrezko tartaren bila hasi zen. Irene Aldasoro

-Laztana, ez egin hori, **aitatxok** oraindik ez du osorik irakurri. Lopez de Arana

Irriño ttipi bat egizu **aitattori**! Ramuntxo Etxeberri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitari aitatxo maitea** (4); **aitatxo eta** (6); **aitatxo maitea** (13); **axenariok aitari aitatxo** (4); **baina aitatxo** (5); **baina aitatxok** (3); **eta aitatxo** (5)

---

aitatzako *iz* aitaordea.

Sorayaren besoetan, lipar batez, haien aita bihurtzen da: **aitatzako**, aitaorde, itzaletako aita. Oskar Arana

---

aitaxi ik **aitatxi**.

---

aitaxo *iz adkor* aitasoa.

Bereziortua jaunak guk paseotxo bat egin dezagun nahi du bere etxeraino, eta neskatoak gurekin etorri nahiko du kotxe ibilaldi hori aprobetxatuz, eta horrela, aspaldiko partez, bere **aitaxori** muxu pare bat eman nahi izango dio. Joxemari Iturralde

---

aitazko *izlag* atari dagokiona.

Haren eskuak aipatu nahi nituen, nola gogor, ihar eta **aitazko** aurpegia laztandu zidaten, baina orduan atea danba ireki zen, zakurra salto batez zutitu, pozez txoratuta zaunkaz hasi, eta printzeari argitu zitzaion aurpegia, piztu ere bai. Matías Múgica

Bestalde, **aitazko** aholku bat jaso nuen: inolaz ere ez zituen afera hark Belgikaren eta Japoniako herriaren arteko harreman onak lausotuko. Joxan Elosegi

---

aitazulo *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) izond adkor* haurrez mintzatuz, beti aitarekin egon nahi duena. ik**amazulo**.

Aitazulo ziren biak. ETC-literatura, saiakera

Aitazulo bat egina, ezin berexizkoak. ETC-literatura, saiakera

Eskuarki helduei ematen zaien fluvoxamina duen Luvox botika eman zitzaien sei eta 17 urte arteko 128 gaztetxori, eta ondorioztatu zutenez, oso lotsatiak edota amazulo zein **aitazulo** direnek, eta bakarrik lo egiteko eta eskolara joateko beldur direnek hobeki jokatzen dute botika psikiatrikoa emanda. ETC-prentsa

ANDONI.- Beno, Julenek ez handiegia, egia esan, baina Elenek bai. Badakizu oso **aitazuloa** izan dela beti. ETC-telebista

---

aitazulokeria *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* aitazulo denaren nolakotasun gaitzesgarria.

Geroztik Piopio ez dut gehiago ikusi, Lurdes oraindik gutxiago, Londonen bizi omen da, denen mesederako.Miguelekin Piopiok zeukan **aitazulokeria** laster moztu zuen. ETC-literatura, saiakera

---

aitazurtz *iz adkor (cf **umezurtz**)*

Halatan, narratzailea hildako bat da kontu bitan, **aitazurtza** beste batean, senar abandonatua, militante nekatua, arratoi batzuk, bakarrik gelditutako laguna. Markos Zapiain

---

aitetama *pl* aita eta ama.

Lindaren **aitetamak** Dominique eta Marie Claire NASCIET dira. Herria

Haurra 1977an sortu zen Pozo de Banfielden eta bere **aitetamak** desagertarazi zituztelarik, Mercedes Fernandez bikoteak alabatzat hartu zuen, antza, bere benetako jatorriaz jakinean izan gabe. Berria - Mundua

Gure **aitetamek** onartzen zuten holako larderia, elizaren menean izaiteko heziak baitziren. Herria

Ezkontza gizon-emazteen arteko zerbait izan da orai arte, bereziki haurren algarrekin altxatzeko egina, **aitetamen** artean. Herria

---

aitita *(ETCn **717** agerraldi, horietatik **404** azken sei urteetan; orobat **aitaita** ETCn **631** agerraldi, horietatik **288** azken sei urteetan) (orobat **aitite** eta **aittitte**)* **1** *iz* aitona. ik **amama**; **aitaita**.

Imanolen **aitita** Narziso Arrola Rufinoren lehengusua zan, bera be trikitilaria. Xabier Amuriza

Gogoratzen dut nire aitaren aitak, **aititak**, nik hamar urte nituela, garaiko 25 pezeta ematen zizkidala esaldi bat euskaraz esateagatik, eta nik, loritoaren antzera errepikatzen nuela paga lortzeko. Ana Urkiza

Gau hartan nire semearen ondoan etzan nintzen, haren ohean, hain zuzen ere arratsaldean bertan -zortziak laurden gutxiagotan zehazki- jaso genuen albiste tamalgarriak - **aitita** derrepente hil zelakoa, alegia- semeari loak hartzea galaraz ez ziezaion. Pedro Alberdi

Normala **aititak** txakurrak tratatzen jakitea; baserrian jaio eta hazia zela kontuan hartuz gero, behintzat. Pedro Alberdi

Manuk tira eta tira egiten zion **aititari** eskutik, lehenbailehen alde egin zezaten handik. Pedro Alberdi

Emiliano Arriaga izan zen nire **aititaren** aita, Bilboko Elkarte Filarmonikoa sortu zuen, eta lan handia egin zuen Arriagaren obrak zabaltzeko. Berria - Harian

Aitak **aititarengandik** jaso zuen negozioa, eta hala egokitu zait neuri ere, baina ez dut besaulki lixatu berrien artean hil nahi. Javi Cillero

Aittitte eta amamaren baserria Mugertza deitzen zen, baina hantxe bertan intxaurrondoaren aldamenean Etxeberritxo baserria zegoen. Joseba Sarrionandia

Gure aiton-amon, **aittitte**-amama bat baino gehiago akordatzen omen dira iragan San Markos egunez nola prozesio egiten zuten elizbiran, kyrieleisonak abestuz-eta. Pello Zabala

2 *aitita-amama*

Kasu bat aipatzearren, Agustin izeneko bere lagun baten **aitita-amamak** eta bi izeko bertan hil zirela, eta zer nahi zen horrelako aurrekari batekin, zer espero zitekeen Agustinengandik, hilarrietan euskaraz idaztea ere galarazita zegoen giro batean. Bernardo Atxaga

Ikaskide guztiek alde egiten zuten aroa zen: bigarren edo hirugarren etxeetara, gurasoen jatorriko herrietara ere bai, batek edo bestek **aitita-amamaren** baserrian baitzeukan hiri erdaldun honen beste muturrean zegoen Lurreko paradisua, eta bazen inori esan barik al pueblo joaten zenik ere. Urtzi Urrutikoeetxea

Bai, ordea, "amandre-aitajaun" eta "**aitita-amama"rik**. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitite amamak** (3); **aitite eta** (3)

---

aitite ik **aitita**.

---

aiton ik **aiton**a.

---

aitona *(orobat **aiton** g.er. eta **aitton** g.er.)* **1** *iz* aitaren edo amaren aita; adin handiko gizona. ik **aitaita**; **aitita**; **aitaso**; **aitatxi**; **amona**.

Aitona, berriz, ez dakit xuxen noiz jaio zen ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Aita eta **aitona** errabinoak zituen. Koro Navarro

Bere aita, **aitona** eta birraitona, bi neba ere bai, diplomatikoak ziren. Hasier Etxeberria

Aitona bizkar sendoko gizona zen, lasaia, onkotea. Anjel Lertxundi

Julian ez zen pelikuletako **aitona** maitagarri horietakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ni Muñagorri nauk, eta **aitona** ere Muñagorri. Xabier Mendiguren Elizegi

Aitona nuen gogoan Kuba lehenengo aldiz ikusi nuenean. Jon Muñoz

Aitona gosaltzen ari zen; beltzez jantzita zegoen. Koro Navarro

Nik txikitan aitonak nolakoak ziren galdetzen nien etxekoei, eta amona Noeliari **aitona** Alejandro nolakoa zen galdetzen nion. Jon Muñoz

Aitona Patxi eta amona Mari orduan egin ziren nobioak, azaldu dit aitak. Iban Zaldua

-Nola iritsiko zen hire **aitona** Kubara? Jon Muñoz

Piperrik ez du entzuten **aitona** honek -bota zuen Vittoriok. Joxemari Urteaga

Badator atzera xirriki xarraka **aitona** sutondora. Patziku Perurena

-**Aitonak** amona abandonatu izan balu, amonak begitan hartua izango zuen **aitona**. Jon Muñoz

Badirudi gure amonaren **aitona** izan zela arbelaren negozioa altxatu edo antolatu zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Historia haren protagonista bere **aitona** izan zen, eta gure **aitonaren aitona**, beraz. Joan Mari Irigoien

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Hor behean **aitona** xahar bat dagoelako gurpil-aulkian, bere Potto ikusi nahi duela, bere Potto ikusi nahi duela builaka. Jesus Mari Mendizabal

Eta karea egosteko ere, karobia sutzerakoan, otea nahi izaten omen zuten garai bateko **aitona** zaharrek, sukairik hoberenetakoa zelakotz. Patziku Perurena

Ilundu aurretik iritsiko ahal gara zure **aitona** zoroaren etxera! Aitor Arana

Julian ez zen pelikuletako **aitona** maitagarri horietakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Tipo interesgarria, gure **aitona** puzkerrontzia, tamalez ez nuen aukera fisiko zein psikologikorik izan haren ondoan luzaro bizitzeko. Karlos Zabala

Aitortu behar dut inbidia apur bat ematen zidala **aitona** borrokalari eta idealista hark. esku batez pistolari tinko eutsiz, **aitona** errepublikarraren erlojua atera nuen poltsikotik. Xabier Mendiguren Elizegi

Sutondoan eseria dagoen mutikozkorrak, izuturik, hala galdetzen dio bapatean **aitona** bizartzuriari: [...]. Patziku Perurena

Nire **aitona** errusiarraren pasadizo bat daukat, liburu horretako adibide-zerrendan eransteko guztiz aproposa. Xabier Mendiguren Elizegi

Aitona hilaren gutun biziak. Jon Muñoz

Aitona galdu baten bila etorria nintzen. Jon Muñoz

Baina nik benetako **aitona** baserritar bat nuen, txapel eta guzti, erdaraz gaizki hitz egiten zuena gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

Amaren arreoko burruntzali kirtena, **aitona** zenaren kutxarea, haurrak deskuidoan komuntzulotik botatako guraize herdoiltuak. Patziku Perurena

Agian, gure **aitona** zenak esan ohi zuen bezala, "haizerik ez den urtean", saiatuko naiz finago. Patziku Perurena

3 (hitz elkartuetan)

Atzean utzi genituen, **aitona**-izeba eta haien inguruan zuten guztia. Jon Muñoz

4 *aitona-amona* aitona eta amona.

Ez dakigu nola bizi ziren **aitona-amona** horiek. Marrazki bizidunetako **aitona-amona** xarmagarri horietakoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nire aitak hornikuntza bulegoetara joaten jarraitu zuen, zerbait gehiago eskatzera **aitona-amona** zaharrentzat, familia ugarientzat, merkatu beltzaren azpitik zeuden guztientzat. Joseba Urteaga

Maria eta Patxi, nire **aitona-amonak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Zaharren egoitzetan diren **aitona-amonei** bisita egiten diete. Berria - Harian

Emakumearen gurasoek, **aitona-amonek**, birraitona-amonek, eta bir-birraitona-amonek egindako balizko bekatuen zerrenda bota zuen, hamargarren belaunaldiraino. Koro Navarro

Allikeneko guztiekin joaten nintzen, guraso eta **aitona-amonekin** [...] baita Atxetako osaba Karmelo, izeko Primi, eta Paulo eta Gaxuxa lehengusuekin ere. Txillardegi

Alemaniar jatorriko **aitona-amonen** gorabeherak Alsazian, alemaniar izan nahi eta ezinaz. Anjel Lertxundi

Aitona-amonen herrira joango dira festetan, gero guraso eta anai-arrebekin kanpinean oporretan, gero ez-dakit-zer. Xabier Mendiguren Elizegi

Patoisa izan zen nire **aitona-amonen** hizkuntza bakarra. Joseba Urteaga

Aitona-amonena esan nionean, modu berezi batez begiratu zidan, begi beltzen atzetik, ile kizkurraren azpitik. Lander Garro

Geroago jakin nuen, Imanol izeneko pabiloi atezain bati esker, Fernando bera izan zela Industria Uhin berriaren agentea, eta berak saldu zituela, bortizki aberastuz, bere **aitona-amonenak** izandako sailak. Bernardo Atxaga

Ez neukan gogorik **aitona-amonengana** joateko ere. Jesus Mari Mendizabal

Familiako bazkari-egun horietako bat izango zen, bestela ez bainintzen azaltzen **aitona-amonenean**. Xabier Mendiguren Elizegi

Txikitatik joan izan naiz **aitona-amonenera**, jai-egunetan batik bat eta bestela ere bai garai batean; Larregira aurrena, eta kaleko pisura gero. arrazialki judua kontsideratzen da, gutxienez **aitona-amonetako** bat "erlijio komunitate judukoa" duena. Xabier Mendiguren Elizegi

Aitona-amonez jarduteak baditu bere alde on eta txarrak: txarra, aita-amez baino gutxiago dakigula, garaia askoz urrunagoa zaigula. Xabier Mendiguren Elizegi

Aitona-amonik gabeko familia da gurea. Joxerra Garzia

Aitona-amonaren irudiak, gazterik, oso gazterik, artean oraindik dena posible zelarik mundua beren esku zeukaten garaikoak. Jon Muñoz

4 ***aitonen seme*** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **aitoren seme** agertzen da)*

Zer meritu du aberats jaiotzeak, noble edo **aitonen seme**? Joan Mari Irigoien

Behin **aitonen seme** batek honela esan zion dama bati: [...]. Anjel Lertxundi

Gehienbat Errusiako erreboluziotik ihesi etorritako **aitonen seme** probretuak bizi omen ziren bertan. Alberto Ladron Arana

Arvilleko anaiek piztia hura aurkitu eta hiltzea deliberatu zuten, eta eskualde hartako **aitonen seme** guztiak gonbidatu zituzten ehizaldi handietara. Josu Zabaleta

Eta -baten batek noizbait esan zuen bezala- hobe familiaren iraganean handitasun bila arakatzen ez hastea, topatu nahi zen **aitonen semearen** ordez errazago aterako baitzaizu sasikoren bat edozein bazterretan. Xabier Mendiguren Elizegi

6 ***aitonen alaba*** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **aitoren alaba** agertzen da)*

Begitarteak "Japonia zaharreko krabelina", behialako **aitonen alabaren** ikurra, zekarren gogora: silueta handi haren gainean, mundua mendean hartzea zen Fubukiren patua. Joxan Elosegi

7 ***birraitona-amona*** *pl*

Behin, Marylanden, esklaboen lau familia ezagutu zituen, ehun urtean elkarren ondoan bizi izandakoak: **birraitona-amonak**, aitona-amonak, amak, aitak, osabak, izebak, lehengusuak, haurrak. Anton Garikano

Eta emakumearen gurasoek, aitona-amonek, **birraitona-amonek**, eta bir-**birraitona-amonek** egindako balizko bekatuen zerrenda bota zuen, hamargarren belaunaldiraino. Koro Navarro

Nire **birraiton-amonak** han-hemenka jarriak dauden erretratu obalatuengatik baizik ez ditut ezagutzen. Karlos Zabala

8 ***herenaitona-amona*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) pl*

Albuma haien ideia izan zen, nire **herenaitona-amonena**. ETC-literatura, saiakera

Halarik ere, hegazkineko emakumearen aitita-amamak izan ez baziren ere, izan zitezkeen birraitona-amonak, edo **herenaitona-amonak** edo dena delakoak, guri berdin zaigu. ETC-literatura, saiakera

Hau da, arbaso zuzen bat (gurasoak...) edo lehenagokoak, (aitona-amonak, birraitona-amonak, **herenaitona-amonak** ...) eta honelaxe, denboran atzera eginez. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita eta aitona (5); **aitona alejandro** (6); **aitona alejandroren** (5); **aitona amona** (13); **aitona amonak** (20); **aitona amonei** (3); **aitona amonek** (14); **aitona amonekin** (5); **aitona amonen** (25); **aitona amonen etxean** (3); **aitona amonena** (4); **aitona bat** (13); **aitona batek** (5); **aitona baten** (3); **aitona bezala** (6); **aitona bizirik** (7); **aitona da** (3); **aitona edo** (5); **aitona ekarri** (3); **aitona ere** (18); **aitona eta** (29); **aitona eta amona** (10); **aitona eta biok** (3); **aitona eta birraitona** (3); **aitona ez** (21); **aitona ez zegoen** (3); **aitona ez zen** (6); **aitona ezagutu** (5); **aitona fusilatu** (6); **aitona fusilatu ondoren** (3); **aitona han** (4); **aitona hil** (14); **aitona hil eta** (3); **aitona hil zenean** (4); **aitona hila** (4); **aitona hilik** (3); **aitona hori** (3); **aitona hura** (5); **aitona ikusten** (3); **aitona izan** (11); **aitona izan zen** (5); **aitona jexux** (3); **aitona joxemari** (8); **aitona joxemariren** (3); **aitona leon** (21); **aitona leonek** (3); **aitona martin** (4); **aitona martin eta** (3); **aitona miguel** (11); **aitona miguelek** (4); **aitona nikolas** (29); **aitona nikolas gero** (3); **aitona nikolasek** (49); **aitona nikolasek bere** (3); **aitona nikolasek ere** (3); **aitona nikolasek ez** (3); **aitona nikolasekin** (3); **aitona nikolasen** (17); **aitona nikolasez** (3); **aitona nikolasi** (7); **aitona oso** (4); **aitona parentek** (3); **aitona patxi** (10); **aitona patxi eta** (3); **aitona zaharra** (4); **aitona zaharrak** (4); **aitona zen** (8); **aitona zena** (5); **aitona zenak** (3); **aitona zenaren** (3); **aitona zoriontsua** (3); **aitonen seme** (8); **aitonetarik bat** (3); **aldeko aitona** (3); **bai aitona** (3); **baina aitona** (12); **baina aitona ez** (4); **batean aitona** (4); **bere aitona** (18); **du aitona** (3); **edo aitona** (4); **edo aitonen** (3); **ere aitona** (4); **eta aitona** (63); **eta aitona amonak** (3); **eta aitona amonen** (4); **eta aitona ere** (3); **eta aitona nikolasek** (8); **eta gure aitona** (8); **eta haren aitona** (3); **eta zure aitona** (4); **ezen aitona** (3); **gero aitona** (3); **guraso eta aitona** (3); **gure aitona** (85); **gure aitona izan** (3); **gure aitona patxi** (3); **gure aitona zen** (3); **haren aitona** (6); **hasi zen aitona** (3); **hire aitona** (12); **marroren aitona** (7); **nik aitona** (3); **nintzen aitona** (5); **nion aitona** (3); **nire aitona** (27); **nola aitona** (4); **nola aitona nikolasek** (3); **nuen aitona** (5); **saiatzen nintzen aitona** (3); **segurako aitona** (3); **zaio aitona** (3); **zegoen aitona** (3); **zen aitona** (21); **zen aitona nikolas** (3); **zen gure aitona** (4); **zigun aitona** (3); **zigun aitona nikolasek** (3); **zion aitona** (3); **zitzaion aitona** (4); **zuela aitona** (3); **zuen aitona** (18); **zure aitona** (18)

---

aitonatxo *iz adkor* aitona.

Hemen, gutxien espero duzun **aitonatxoak** ere badu film baterako gidoi bat, azukre koxkorren ontzian ezkutatuta. Harkaitz Cano

---

aitondu, aiton(du), aintontzen *(orobat **aittondu** g.er.)* da/du *ad* aitona bihurtu; zahartu. ik **amondu**; **aitona-amondu**.

Adinak itsusten eta hondatzen duelako gorputza eta ekartzen zimurrak bisaira, halako tailuz, non segur egon baitzaitezke ezen mutil hura -denborak gizondua eta **aitondua** -mesprezatzerat eta gorrotatzerat ere iritsiko zinatekeela, koadroko bertze mutil hura gogoan. Joan Mari Irigoien

Aitontzean, hain justu, bere bizitzari errepasoa egingo dio. Berria - Kultura

---

aitonenseme *iz* leinuz gizarte egoera jasoa zuen eta bere lanetik bizi ez zen pertsona.

Irakurtua dut zerbait hemengo historiaz: Obanos hirian bildu zirela hamalaugarren mendean **aitonensemeak**, erregearen botereari ihardukitzeko. Piarres Aintziart

Madril aldetik-eta bere jatorriaren berri galdezka etorri den asko disgustu galanta hartuta itzuli dela, espero zituen euskaldun leinargi eta **aitonensemeen** ordez sasiko eta parte txarreko arbasoak aurkituta. Xabier Mendiguren Elizegi

---

aitonseme *iz* aitorensemea.

"Kontserbatzailea" izendapena R. de Chateaubriand-en Parisko Le Conservateur (1818) aldizkaritik ei dator, **aitonsemea** eta bretoia berau, lehen erromantizismo frantseseko literato gailena. Joxe Azurmendi

Gure ziztrinkerietatik at eta gorago kokatutako **aitonseme** bikain, bekaizkeria ezkutu baina biziaz. Jaun **aitonsemeak** ez du onartzen inork ezarri legerik, agindurik. Txillardegi

---

aitontasun *iz* aitona denaren nolakotasuna.

Victor Hugorenean begiratu beharko du berriro, **aitontasunaren** poetarenean. Oskar Arana

---

aitontxiki *iz*

Niko hori, noski, nire **aitontxikia** izan behar nuen, Agirre'tar Nikola, Metxa. Koldo Izagirre

Nire **aitontxikia** libratzera etorri zara, orduan? Koldo Izagirre

Beñatek Metxa **aitontxikiari** bidaltzen dizkion gutunetan Espainiako erregearen zigilua buruz beheiti jartzen du. Markos Zapiain

Baina jakin ezazu, fiskalak deitu nauen arren, nik zure **aitontxikiaren** onerako deklaratuko dudala! Koldo Izagirre

---

aitor 1 *iz* aitormena.

Baina, bertze deusi lotu aitzin, ez ote zuen ene liburu honek aitzinetik bertze **aitor** bat behar? Joan Mari Irigoien

Baina atzera egiterik ez zegoela ulerturik, neure **aitor** edo barne-husketari ekin nion. Txillardegi

Beldur naiz, gainera, ez ote dudan har horrekin segitu beharko, damuak damu eta aitorrak **aitor**, zorra ez baita kitatzen, ez bekatua barkatzen, lapurtutakoa itzuli ezean. Xabier Mendiguren Elizegi

Ordea, bazirudien ezen, bere **aitor** izugarri haren ondotik, bertze zerbait atxikitzeko moduan zegoela. Joan Mari Irigoien

-Zaldun hau oso egokia litzateke Ordenan gure lagun izateko, hain da esker eta **aitor** onekoa Jainkoarekin, eta hain da maitati eta adeitsua lagun hurkoarentzat eta Haren behartsuentzat. Askoren artean

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aitor-ageri horiek ez dira, ustez, hutsak. Juan Garzia

Elizara joaten ginen eta **aitor**-lekuan esaten genuen: aita, konfesatu nahi dut. Pello Lizarralde

Baina zuk ez duzu garrasi hau adituko, ni bizi naizen artean... soilik hilda banago jasoko duzu **aitor**-hitz hau nigandik. Eduardo Matauko

Gizaseme honi bidea zabaltzen badiogu, gezurra litzateke bere **aitor**-zina; eta, legez, heriotza merezi du. Patxi Ezkiaga

Izan ere, Mattinek ez luke deus ere ulertuko eta nahi nuke hau guztia isilpean eramaitea eta bion artekoa izaitea, apezari eginikako **aitor**-sekeretua balitz bezala. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Elizakoei dagokienez, hildakoak (Abelek!) ez zuen birao bat botatzeko astirik ere izan, gutxiago hil-**aitor** bat egiteko, baina nork esan dezake ezertaz damutzeko eta inoren bedeinkazioa hartzeko borondatea izan zuen ala ez? Anjel Lertxundi

4 ***aitor egin*** du *ad* aitortu.

Laztana, iluntasunetik ari natzaizu mintzatzen; ez dut lotsa izpirik, **aitor egin** nahi dizut, baina ez izutu, maitea: neure larrua salduz. Eduardo Matauko

Zalantza apur batez betiere, bihotza biluzteak sentikortasun ulergaitz halako bat erantsiko balio bezala, **aitor egin** ohi zuen maite zituela koloreak, landa aldea, sasoi onak, antzezlan zinez ikusgarriak, material atseginak, jostura oneko arropak, eta eguzkiaren distira bera. Mirentxu Larrañaga

Aitor egiozu zeruari; damu izan iragan dena; eragotzi datorkeena; eta ez zabaldu simaurra belar gaiztoen gainean, gaitzago haz daitezen. Juan Garzia

5 ***aitor eman*** du ad onartu, ezagutu.

Oso tinko gelditu zait beha, nire esanari **aitor emanen** ez balio bezala. Koldo Izagirre

Eta bere esanari **aitor ematen** ez diozula nabaritzen duenean, ez zaizu gaitzituko. Koldo Izagirre

6 ***aitor entzule*** *iz* bekatuak aitortzan entzuten dituen apaiza.

Borreroa, bere betiko **aitor-entzulea** urkatu behar izan zuenez geroztik, ez da gehiago aitortzera joan. Karlos Linazasoro

7 ***aitor izan*** du *ad* aitortu

Ez zaitut laidotu nahi; baina zeureganatua duzun omenarekin, eta, zuhaurk **aitor izan** duzunez, aldez bederen merezia baituzu, zein emakumek onar lezake zurekin gutun bidezko harremanik izaterik? Jon Muñoz

Orain dela bost urteko nire egoera fisiko zein mentala, **aitor** dut, pattala zen oso. Josetxo Azkona

Beti memelo-bidaiak egin ditut, **aitor** dut. Fernando Rey

-Bostekoa eman nahi nizun, nahiz eta, **aitor** dut, zure jokaera hain bitxia da, hemen kale erdian... Badirudi zu... -Sorbaldak jaso zituen, abiatzeko prest. Anton Garikano

Ez da falta izan, haatik, gizaki txit bikainik (eta haien lanari eta arteziari asko zor diogula **aitor** dugu) bizitzeko modu zuzenaz gauza miresgarri asko idatzi duenik eta zuhurtziaz beteriko aholku franko eman digunik. Piarres Xarriton

Azkenean, egun batean: "Ja ez dut hura maite", **aitor** dio Elisari gizonak; baina baita, hitz zurrusta berean: "Hutsik banengo bezala da... ". Pablo Sastre

8 ***aitor oneko*** *iz* esker onekoa.

-Zaldun hau oso egokia litzateke Ordenan gure lagun izateko, hain da esker eta **aitor onekoa** Jainkoarekin, eta hain da maitati eta adeitsua lagun hurkoarentzat eta Haren behartsuentzat. Askoren artean

9 ***aitorra eman***

Eta ez ote zen, bada, aitak osabari egin irri hura erranahi bikoitzekoa, izan zitekeelako, alde batetik, osabaren zorroztasunari eta haren buru-argitasunari ezagutza egiteko eta **aitorra emaiteko** modu bat, eta izan zitekeelako, bertzetik, osabari trufa egiteko modua ere...? Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aitor dezadan (28); **aitor dezagun** (32); **aitor dezake** (5); **aitor dezaket** (8); **aitor dezan** (8); **aitor dizut** (27); **aitor du** (8); **aitor dut** (82); **aitor eta** (21); **aitor ezak** (9); **aitor ezazu** (12); **aitor ezazue** (5); **aitor nezake** (5); **aitor zezan** (5); **atzo aitor** (6); **dio aitor** (6); **ditu aitor** (12); **dituzte aitor** (8); **du aitor** (36); **dute aitor** (14); **ez aitor** (8); **nola ez aitor** (5); **zuen aitor** (8); **zuen atzo aitor** (5)

---

aitoren (beti elkarketan ageri da, beste hitz baten ezkerrean)**1** *iz* leinuz gizarte egoera jasoa zuen eta bere lanetik bizi ez zen pertsona. ik **noble**.

1 ***aitoren alaba***

Zaldun ibiltari batek etxe batean ostatu hartzen bazuen, etxeko alaba ezkongabea izaten zuen zerbitzari; areago, **aitoren alaba** izanez gero. Juan Kruz Igerabide

Aitoren alaba bat izan ez balitz, kristau-lurretik kanpo ehortziko zitean. Juan Garzia

Aitoren alaba ez bada, eskuinekoa zaio kentzen, arkoaren arazorik gabe erabiltzeko gisan. Aurelia Arkotxa

2 ***aitoren seme*** *(orobat **aitorenseme**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **aitoren seme** agertzen da)* ik **aitorenseme**.

Aitoren seme utziko zituzten Garazi edo Baigorri aldeko behorzainik basenak ere. Aingeru Epaltza

Jendeak, ordea, askoz gutxiago zituela uste zuen, txiki-txikia zelako, aita bezala; Micheletto zalduna deitzen zioten aitari, guztiz txikia zelako eta zaldi gainean bidez bide pasatzen zituelako egunak, inguru hartako **aitoren semeen** gutunak banatzen. Jon Muñoz

Sartzen zara, eta **aitoren semeen** etxe artean zaude; Inkisizioaren airea arnasten duzu; karrikaren beste muturrean ikusten duzu zutik Felipe II.aren mamu zurbila. Koldo Izagirre

Artean gazte, oso aberatsa zen ordurako, herriko **aitoren semeei** hainbat landetxe bereturik Chieritik hasi eta Astigianoraino. Juan Garzia

Aitoren seme harro baten itxura izanagatik, behin baino gehiagotan ukabil kaskaka lotu zitzaion nardatu zuen norbaiti, eta aldi guzietan, kontrakoarengandik bereizi behar izaten zuten haren etsaiaren salbatzeko arotz batek ingudeari ematen dizkion mailukaden pareko kaska haietarik. Elena Touyarou

Bestalde, badugu bestelako **aitoren seme** batzuen euskaltasunaren berri, adibidez, Etxauztarrena, zeinetako bati dedikatu zion Axularrek bere liburu ospetsua. Berria - Kultura

Morroi zentzudunak **aitoren semeak** izango ditu zerbitzari, zuhurrenak ere ezin izango dio ezer aurpegiratu. Elizen arteko biblia

Akemenestar Inperioan "jaiotzaz **aitoren seme** ziren pertsiar mutil guztiak". Iñaki Mendiguren

Aitoren semeei berei ere artobero-usaina zerien, eta etxeetako atezainek berek ere atseginez errespetatzen zuten gizarte-ordena, aldi berean mugagabea eta gizatiarra zen ordena hura. Xabier Olarra

Orduan zituen inguruetako **aitoren-seme** baten hiltzera igortzen. Aurelia Arkotxa

3 irud/hed

Zer izango da, **aitoren** seme hori? Oskar Arana

- **Aitoren seme** iberikoen eskola, jakina. Josu Zabaleta

Baina bada hor **aitoren semetxo** bat, begi-okerra; badakizu zein abertzalerengatik ari naizen, ez? Irene Aldasoro

4 ***aitoren seme-alaba*** *(orobat* ***aitorenseme eta alaba****)*

Aguirretiarrek leku berezi bat atxikitzen zuten Donibane-Garazin, aberatsak izanez eta **aitoren seme-alabak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ordurako bilduta zeuden errege-erreginak, hainbat **aitorenseme eta alaba**, kapare, zaldun eta elizgizon; denak jendekoi eta hizketa atsegineko. Anjel Lertxundi

5 ***aitoren semetza***

Esango zait antrustioien taldeak gizon libreena ez bezalako taldea osatzen zuela Estatuan, baina, feudoak hasieran aldagarriak eta gero biziartekoak izan zirenez, hortik ezin zela jatorrizko **aitoren semetzarik** sortu, pribilegioak ez zeudelako oinordetzazko feudo bati lotuta. Iñaki Iñurrieta

---

aitorenseme *(orobat* ***aitoren seme****) iz* leinuz gizarte egoera jasoa zuen eta bere lanetik bizi ez zen pertsona.

Ordurako bilduta zeuden errege-erreginak, hainbat **aitorenseme** eta alaba, kapare, zaldun eta elizgizon; denak jendekoi eta hizketa atsegineko. Anjel Lertxundi

Xulian hori, soldado bat zen, **aitorensemea** eta bere aitamak jakin gabe hil zituen bekatua ordaintzeko ospitalero gisa jarri zen bere emazte Adelarekin. Piarres Aintziart

Interesgarriago zeritzon, nahiz egikeran kontraesantsua eta axalekoa izan, Daudet-en asmo ospetsua: figura batean elkartzea, Tartarin-engan, hain zuzen, **Aitorenseme** Ingeniotsua eta haren ezkutaria. Juan Garzia

Aitorenseme -jantzian zegoen taldeko batek, ordea, iraindutzat jo zuen bere burua eta, adimentsu -hau da, ahal zuen pozoi guztiarekin-, erantzun zion kardinalari. Anjel Lertxundi

---

aitorgabe *izond* aitortu gabea.

Askoz garrantzitsuago eta harrigarriagoa da haren infiltrazio isilpeko eta **aitorgabea** -baina ukaezina- erromatar izandako hainbat probintziaren arabiar konkistatzaileen zuzenbide islamikoan. Iñaki Mendiguren

---

aitorgaitz *izond* aitortzeko zaila, ia aitorrezina.

Eta mila ezkutukeria eta itsuskeria **aitorgaitzetan** usatua, suma nezakeenez. Txillardegi

---

aitorgarri *izond* aitor daitekeena.

Beste gauza bat da zalantza une horrek, **aitorgarria** izan dadin, une batekoa baino apur bat luzeagoa izan behar izaten duela. Harkaitz Cano

---

aitorka *adlag* aitortzen eta aitortzen.

Puskaz lehenago Alberto saihetsetik: beste zerbait "arinberri" idazteko erreguka; Axier ordea, penaz bezala atzetik, sinesle "astuntzar" morboso franko banuela **aitorka**. Patziku Perurena

---

aitorketa *(corpusean ez dago; ETCn* ***8*** *agerraldi) iz* aitorpena.

Zigortzat leizea, makilatzat harpea, tente egoteari ezetz ta mintzoari uko ta mutu bihurtzea, eta giza betiko erreta, ahanzpenaren eskutik alderantzizko munduaren ikaraz eta, horretarako ez baikinen sortu, onar otoi bihotz **aitorketa**. ETC-literatura, saiakera

Ta neu ere **aitorketatxo** bat egin bearrean naiz: neuk ere pekatutxo eme au egin det, ta siñisten ez badezu zoaz Yakin'en argitaratu nuen leenbiziko lana aztertzera. ETC-literatura, saiakera

Hots, neure buruarekiko kontuak garbitzeko joaten naiz bakarrik, garbiketa hutsa baita, eta egiazko **aitorketa**, bakardadean egiten dudan egonaldia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aitorketa hunen ondorioak ez dira oraindik ongi neurtu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ots, nere buruarekiko kontuak garbitzeko joaten naiz bakarrik; garbiketa utsa baita, ta egiazko **aitorketa**, bakardadean egiten dudan egonaldia. ETC-zientzia, zuzenbidea

ETXANIZ.- bada beste kontu bat: **Aitorketan** ez zuten jaso Germanen arropen eta azalaren laginik. Beraz, badugu nahikoa arrazoi baikor agertzeko. ETC-telebista

---

aitorkide *iz* kidea aitortzan.

Henrique zaldunak erantzun zuen erregea lasai geldi zitekeela, berak dena ahalik eta hobekien egingo zuela, Jainkoaren laguntzarekin, eta diruzaintzaren zailtasunari zegokionez **aitorkide** diskretua izango zela, eta inoiz ez kezkatzeko bere zerbitzuen ordainketaz. Jon Alonso

---

aitorkizun *iz* aitormena.

Aitorkizuna ere bada, oroimena landu eta aitormen batzuk egiten dituenez. Berria - Kultura

Aitorkizun moduko batzuk egiten aritu arren, badira zenbait kontu lotsa antzeko bat ematen didatenak, ez dakit oso ondo zergatik. Xabier Mendiguren Elizegi

Jendeak besteak haiek bezalakoak ote diren jakin nahian irakurtzen ditu hainbeste eleberri, biografia, **aitorkizun** eta oroitzapen-liburu. Karlos Zabala

"Et toujours l'épine est sous la rose", irakurri du orain alargunak, arrosapean beti arantza, Rousseau zaharrak, **Aitorkizunak** idazten ari zela, osorik gogoratu ezin zuen txikitako abestiaren bukaera. Imanol Zurutuza

Hil aurreko egunean erakutsi zidan liburu zahar hura: San Agustinen **Aitorkizunak**. Aritz Gorrotxategi

---

aitorkuntza *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi) iz* aitorpena.

Egiazki, egun haietan, arratsaldez eta gauez, deungaro egin zuten berba mezaz, **aitorkuntzaz**, Bere Maiestate Erregeren induljentziez... ETC-literatura, saiakera

---

aitorle **1** *iz* lekukoa, eskuarki erlijiozko lekukotasunaz mintzatuz; konfesorea.

Karlos II.a "Sorgindua" deritzan erregearen **aitorlea** izan zen Aita Froilan. Martin Anso

Andre Ageda, emakume ahula, fanatikoa eta gaixobera, oso nortasun eskasekoa, aspaldiko neskameren baten mende egoten zen beti etxeko gauzetan, eta **aitorlearen** mende berriz auzi espiritualetan. Koro Navarro

Kristoren **aitorle** honen merezimenduz berpizturiko hildakoez mintzatzera noa, eta adi egoteko eskatzen diet entzuleei zein irakurleei. Askoren artean

Kristoren **aitorle** ospetsu Frantzisko jaun santua Jaunaren 1226. urtean igaro zen bizitza honetatik, urriaren 4an, larunbatez. Askoren artean

Ez zen batere erraza **aitorleentzat** eta konfesatzera zihoazen emakumeentzat amarru honi ihes egitea. Juan Martin Elexpuru

2 errentaren aitorpena egiten duen pertsona.

Aitorleek gusturago osatuko dute errentaren aitorpena aurten. Berria - Ekonomia

75.000 aitorpen positiboak izango direla aurreikusten dute, eta **aitorle** horietako bakoitzak ordaindu beharko duen batez bestekoa 1.186 euro dira. Berria - Ekonomia

Tratamendu hobea egiten dio seme-alabadun familiei eta adineko **aitorleei**. Berria - Ekonomia

Aitorleei 412 milioi euro itzuliko dizkiete Bizkaian. Berria - Ekonomia

Aitorleak lehen baino %15 gehiago dira, higiezinen kapitala %12, eta ondasunen handitzea %45. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta aitorle** (3); **kristoren aitorle** (5)

---

aitorleku **1** *iz* elizetan, bekatuen aitorpena egiteko lekua.

Eskuin aldean, berriz, errenkan jarritako **aitorlekuetan**, fraideak jendea konfesatzen. Anjel Lertxundi

Elizako **aitorlekuen** aurrean ere jende ilarak daude aitortza egiteko zain. Berria - Kultura

Marmar apal bat irteten zen itxitako **aitorlekuetatik**. aski izan da ziurtasun hau, arindurik eta esperantzaz beterik altxa nadin **aitorlekutik**. Karlos Zabala

Deliberatu zen noizbait ere, hurbildu zen **aitorlekuko** sarera, eta, ikaraz, Jesukristo nire jauna esaten hasi zen. Josu Zabaleta

Herri batean egin zuen egonaldia esplikatu zuen, batailoia eliza batean sartuta, bideak elurrarekin igaroezinak zeudela-eta ezin mugiturik, jateko babarruna besterik ez eta komuntzat **aitorlekua** zutela. Koro Navarro

Aitorleku baten barnean. Patxi Zubizarreta

Eskuin aldean, itsua den paretaren kontra, zurezko **aitorleku** apal bat. Txillardegi

Eta zer esanik ez zuek, psikoanalistok: **aitorlekuetako** apaizak bezala, morboso hutsak. Ramon Saizarbitoria

2 irud/hed

-Egun batean, batez ere, sagardoa ekarri ziguten -esan zuen frantsesak-, eta sagardoa alde batetik eta babarrunak bestetik, hainbesterainokoa sortu zen, non ilaran jarri behar izan baikenuen **aitorlekuaren** aurrean. Koro Navarro

Denboraldi bukaeran gertatu ohi denez, Gonzalo Anton Alaveseko presidenteak jokalariak banan-banan hartu ditu **"aitorlekuan"**, eta garbitu ederra eman dio aldagelari. Berria - Kirola

---

aitormen *(ETCn **1.825** agerraldi)* **1** *iz*

Hura ez zen pozten amaren eta **aitaordekoaren** arteko konponezinekin. Juan Kruz Igerabide

Hura ez zen pozten amaren eta **aitaordekoaren** arteko konponezinekin. aitortzea, adierazpena. ik aitorpen. Juan Kruz Igerabide

Aitormena, justizia eta bakea nahi ditugu. Berria - Euskal Herria

Legeak zentzu bikoitza izango du: batetik, biktimei diru laguntzak emateko, eta bestetik, biktimei **aitormena**, damua eta justizia erakusteko. Berria - Euskal Herria

Ez naiz luzamendutan ibiliko: gaurkoa **aitormena** izango da, aurkezpena baino gehiago. Iban Zaldua

Hiltzaile baten **aitormena**. Anjel Lertxundi

Mendekostez 45 haurrek egin dute beren fedearen **aitormena** Hazparneko elizan. Herria

Liztor baten ziztada batek bezala suspertu ninduen **aitormenak**. Anjel Lertxundi

Imajinatzen nuen **aitormenak** hunkituko zuela. Matías Múgica

Aitormen batzuk izan ziren, gertatutakoen ezagutza bat, eta errudunak ere seinalatu ziren. Iñaki Segurola

Entzun nire bihotzaren **aitormena**, eta har itzazu amodioaren musurik amoltsuenak. Jon Muñoz

36ko Gerran fusilatu, desagerrarazi eta errepresaliatuen aldeko **aitormen** eta erreparazio moralari buruzko adierazpen instituzionalaren proposamena onartu edo ez eztabaidatu behar baitzen. Berria - Euskal Herria

Denbora asko pasatu da eta 1936ko gerrako historiako protagonista asko hil dira, eta ezin izan dituzte ezagutu gizartearen konpentsazioa eta **aitormena**. Berria - Harian

Indarkeriaren bidea argi eta garbi gaitzesten duen **aitormena**. Berria - Mundua

Aski da, beraz, ageriko ekintzaren **aitormena** egitea zeren isilpean aitortzen baita ere barnekoa; ez da, ordea, nahikoa barnekoaren **aitormena** egitea, norbait hil nahi izan dela erranez, agerikoa aitortu gabe, hots, nor hura eho dela. Piarres Xarriton

Kristori buruz egiten dugun **aitormena** zuen artean sendo finkatu denez, [...]. Elizen arteko biblia

Guk, beraz, harekin bizi izan ginenok **aitormen** hau egiten dugu honetaz: anaiak izaten hasi zenetik, eta bere bizitzako denbora guztian, zentzu oneko izan zela anaiekin. Askoren artean

Eta guk, Frantziskorekin bizi izan ginenok, **aitormen** egiten dugu, zerbaiti buruz "honela da" edo "honela izango da" esaten zuenean, hala gertatzen zela hitzez hitz. Askoren artean

Kristori buruz egiten dugun **aitormena** zuen artean sendo finkatu denez, [...]. Elizen arteko biblia

Aldatu ezean, ez dut **aitormena** sinatuko. Rafa Egiguren

Jakizu bigarren gutun hori atxikia dudala, zer gerta ere, nahiz Jakes aita delako **aitormenik** ez daukan lehen hark bezain garbi. Janbattitt Dirassar

Irriaz gaitzitua nintzen, baina **aitormenaz** urgoi. Piarres Aintziart

Kosme eta Damian santuen parrokiako pisatar batek bere **aitormenez** baieztatua da kasu hau. Askoren artean

Gizonak ezgai eta sentiberatasunik gabeak dira, zer kostako zitzaion Raimundo Silvari **aitormenezko** hitzerdi irribera bat, min egingo bazion ere, leungarria zatekeen jelosia mingots haren erdian, horixe baita Maria andreak pairatzen duen gaitza, nahiz eta berak ez dakien. Jon Alonso

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aitormen pertsonalaren esparruan areago lerratzea zilegi bazait, ahozkotasunaren kontu honek berealdiko lanak eman dizkidala esan behar dut. Bernardo Atxaga

Ez du **aitormen** akademikorik nahi. Berria - Gaiak

Aitari buruz hitz egiten hasita, ohi baino **aitormen** intimoago bat egin nien: Antjek ere babesleku bat nahi zuen; **aitormen** latzak intimitatean. Bernardo Atxaga

Gauza guztiak biziarazten dituen Jainkoaren aurrean eta Pontzio Pilatoren aitzinean **aitormen** bikaina egin zuen Kristo Jesusen aurrean erregutzen dizut: [...]. Elizen arteko biblia

Zer arraio ote zen musuka ibiltze hori maiteminduta egon gabe ere, amodiozko **aitormen** polit bat egin gabe ere? Fernando Rey

Javierrek, ordea, ez zidan **aitormen** zintzo hura egiteko aukerarik eman, eta keinu egin zion kamareroari hurbiltzeko. Bernardo Atxaga

Hats bakarrean amodio **aitormen** garratza buhatu zion. Itxaro Borda

Esperten artean funtsezko **aitormen** batetara heltzeko bi urte eta erdi iragan dira, orain auzitegiak ditu gauzak finkatu behar eta deliberoak beti beranta hartzen. Herria

Xehetasun eta argibide gehiago eskatu nizkion, lehendabiziko aldia baitzen halako **aitormen** bat egiten zidala. Anjel Lertxundi

Zinez doluturik naiz ez baitiezazuket asmo oneko **aitormen** egiazko hau bozez eskaintzen ahal. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Antonio Franco *El Periodico*-ko zuzendariaren **aitormen** gutuna argigarria da. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hasiera bateko testua *Nik ez dut Ada hil* esaldiarekin hasten zen: nire bizitza hondoratu omen duen gertakizun bati buruzko errugabetasun-**aitormenarekin** . Anjel Lertxundi

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak EHNA Euskal Herriko Nazio **Aitormenaren** aurkako lau helegite aintzat hartu zituen atzo. Eguzki, LAB, Herria 2000 Eliza, Naziotasun **Aitormenaren** aldekoak. Berria - Euskal Herria

Harro-harro uste duzu horditasuna hain luzea izanen dela non gogoetak ez dukeen maitasun **aitormena** eragozteko astirik? Jon Muñoz

Laburbilduz, nire amodio-**aitormena** egin nahi nion, argi eta garbi, baina kontua behin eta berriz atzeratzen zen, gehiegi. Fernando Rey

Lege **aitormen** ezak gure hezkuntza eredua ahuldu eta euskararen berreskuratze prozesua arriskuan ezartzen du. Berria - Euskal Herria

Ekin sinesmenaren borroka jatorrari eta eskuratu betiko bizia, hartarako deitu baitzaitu Jainkoak, eta fede **aitormen** bikaina egin baituzu, testigu askoren aurrean. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitormen bat (5); **aitormen batzuk** (3); **aitormen egiten** (8); **aitormen egiten dugu** (8); **aitormen hau** (9); **aitormen hau egiten** (7); **aitormen hori** (6); **aitormena egin** (8); **aitormena eta** (3); **aitormena izan** (4); **beren fedearen aitormena** (3); **eta aitormena** (3); **fedearen aitormena** (22); **fedearen aitormenaren** (4); **ginenok aitormen** (4); **ginenok aitormen hau** (4); **herriko naziotasun aitormena** (10); **izan ginenok aitormen** (4); **naziotasun aitormena** (13); **naziotasun aitormenaren** (3); **nire aitormena** (3)

---

aitorpen *(ETCn **7.503** agerraldi)* **1** *iz* aitortzea; adierazpena. ik **aitormen**.

Zoriontasuna mutua da, eta ez da bere baitarik mintzo; horregatik ditu baitezpadakoak **aitorpena** eta deklarazioa (esana behar du izateko): norbait jesuita edo ezkertiarra dela ikusten ez den bezalaxe, zoriontasuna ere ez da kanpotik ikusten, **aitorpenik** behar ez duen zinezko poza ikusten den bezala. Iñaki Segurola

Primeran portatu zara, eta mila esker, beraz -bostekoa eskaini zion **aitorpenari** solemnitatea erakusteko. Josu Landa

Maitasun bihotzeko eta zinezko baten **aitorpena** , hitzekin lan egiten ohiturik dagoen batek hitz bakoitza ongi neurtu eta pisatu ostean idatzia. Xabier Mendiguren Elizegi

Barne-hustutze bat izan zen, adio gisako **aitorpena** , askori kriptiko iruditu arren niri gogoan iltzatuta geratu zitzaidana. Xabier Mendiguren Elizegi

Min eman zion Tomen **aitorpenak** . Koldo Izagirre

Hainbat idazleren **aitorpenek** ere sendotu egiten digute ustea. Bernardo Atxaga

Ez dirudi gauza desegokia, hala ere, gogora ekartzea nola bi pertsonaren **aitorpenek** [...] bete-betean berretsi zituzten, ez bakarrik ondorio orokorrak, aitzitik, baita ondorio hori iristeko erabili ziren hipotesi nagusi guztiak ere. Koro Navarro

Orduan, **aitorpen** hau egingo duzu Jaunaren zeure Jainkoaren aurrean: "Nire aita nora ezean zebilen aramearra zen. Berekin lagun-taldetxo bat besterik ez zuela, Egiptora joan eta etorkin bezala bizi izan zen han. Elizen arteko biblia

Lasaiago geratu zen **aitorpena** egin ondoren, elkarrekin hitzemanda baitzeuden inoiz ez joateko, ezta indarrean ere, Burgosera. Ramon Saizarbitoria

Atzera eragiten zidan [...] gizasemeoi besotik heltzeko zuen era belaxka eta bigunak eta, batez ere, esana dut lehen, **aitorpenak** egiterakoan aurpegia hurbiltzeko zuen ohitura nardagarriak. Joxean Agirre

Harrigarria iruditu zitzaidan bat-batean ezezagun bati horrelako **aitorpena** egitera ausartzea. Oskar Arana

Hala nindian ni, lotan, anaia baten eskuak biziaz, koroaz, erreginaz, bet-betan peitu, neure bekatuaren lore-loretan ebakia, elizakorik, prestaketarik, oliodurarik gabe, **aitorpenik** egiteke, nengoen-nengoenean igorria, neure huts guztien zamarekin, kontu ematera. Juan Garzia

Torturapean egindako **aitorpenak** ez du balio. Juan Martin Elexpuru

Itaunketak alferrikoak dira, delituaren **aitorpena** alferrikoa den bezala, beste froga batzuek baieztatzen dutenean erruduntasuna. Juan Martin Elexpuru

Joan Bataiatzailearen galdera eta Jesusen **aitorpena** . Elizen arteko biblia

Orduan barre egiteari utzi nion, eta ulertu nuen soilik torturaren bidez lortuko nuela mertzenario saldo haren **aitorpena** . Karlos Linazasoro

Ez zaio inori heriotza-zigorrik ezarriko bi edo hiru lekukoren **aitorpenaz** izan ezik; ez da aski lekuko bakarraren **aitorpena** . Elizen arteko biblia

Saul kendu eta David jarri zuen errege, eta **aitorpen** hau egin zuen honetaz: "David, Jeseren semea, aurkitu dut neure gogoko gizon; nik nahi guztia egingo du honek". Elizen arteko biblia

Ez da, gainera, garrantzi gutxikoa -urtebete eta sei urte arteko kartzela-zigorra-, baina beste zerbaitek kezkatzen zaitu batez ere: armak bitarteko, orain arteko **aitorpena** desitxuratuta gelditu litekeela. Rafa Egiguren

Eta zuek, hain zuzen, gure **aitorpena** sinetsi zenuten. Elizen arteko biblia

-Izenpetu al duk **aitorpena** ? Rafa Egiguren

Hala zioen **aitorpenean** . Rafa Egiguren

Maniobra politiko berbera ikaragarri arrakastatsua izan zen beste barbaro batzuek zertu zutenean, aldi berean beren erlijio-fedearen **aitorpenean** akasgabeak izateko argitasuna edota zori ona izan zutenean. Iñaki Mendiguren

2003ko uztailaz geroztik 385 milioi euroren iruzurra atzeman du BEZ zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren **aitorpenetan** . Berria - Ekonomia

PFEZren eta BEZ zergaren **aitorpenei** egotzi dizkiete irregularitasun gehienak. Berria - Ekonomia

Egin berria duzun **aitorpena** dabilkizu bueltaka. Rafa Egiguren

Denborak zure kontra joka lezake, eta agerian gera liteke **aitorpenaren** barren faltsua. Rafa Egiguren

Ez onartu arduradun baten aurkako salaketarik, bi edo hiru lekukoren **aitorpenaz** ez bada. Elizen arteko biblia

- **Aitorpenak** , **aitorpena** zor. Arantxa Iturbe

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bere soinekoa gustatzen zitzaidala esan nion, hori izan zen nire **aitorpenik** pertsonalena, eta berak irribarre egin zuen. Joxean Agirre

Arloteak, ordea, **aitorpen** garrantzitsu bat egitera datorrela azaldu du eta ezinbestez komisarioaren aurrean egitekoa dela gaineratu. Aritz Gorrotxategi

Esaldia -merezi du **aitorpen** publiko bat- Joxe Landarena da, eta *Egin* egunkarian agertu zen 1998ko San Juan bezperan. Iñaki Segurola

aitorpen alkoholikoen zurrunbiloan sartu ginen ohartu orduko, whiskiaren laguntza estimatuaz. Xabier Montoia

Dupinen iradokizunei jarraituz, **aitorpen** idatzien azterketa xehe-xehea egin nuen. Koro Navarro

Nik ere **aitorpen** bera egin nuen. Karlos Linazasoro

Negar zotinka hasi zen **aitorpen** gogorraren ondoren. Karlos Linazasoro

Aitorpen koherentea egin diozu; ez duzu uste zure antzezpenak susmorik eragin dionik orain arte. Rafa Egiguren

Ez zirudien oso jota zegoenik gure **aitorpen** bat-batekoa entzunda. Inazio Mujika Iraola

Behingoz eguzkitako betaurrekoak erantzirik, eta berealdiko **aitorpena** egiten arituko bailitzan, esan dit: "Azkenean Mendebaldea ikusteak deabruzko urduritasuna sortzen dit". Patxi Zubizarreta

Julen abailduta dago, eta polizia etxean izugarrizko **aitorpena** egin balu bezala dago. Luis Elberdin

Konbertsio-hasiera hartako eskaria ("emadazu fedea, itxaropena, maitasuna") esker oneko **aitorpen** bilakatu zaio: "Zu zara gure itxaropena, zu zara gure fedea, zu zara gure maitasuna". Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Enrikek inoiz ez zuen egiten **aitorpen** kutsuko adierazpenik. Iñaki Iñurrieta

Hori ere aitortu behar dizut, lorez eta arantzaz osaturiko **aitorpen** -sorta honetan: ederrak ziren zure gutunak, erromantizismoaren gozoa zinismo-tantaren batekin ozpintzen

zutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Egun hura, beraz, **aitorpen** eguna izango zela erabakia zuen goizetik, bere barneko gauzak, azkenaldian gertatu zitzaizkion guztiak, Maddaleni aitortzea erabaki baitzuen. Joxemari Iturralde

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

238.198 errenta **aitorpen** aurkeztu dituzte momentuz Nafarroako zergadunek, hau da, iaz baino %9 gehiago. Berria - Ekonomia

James Packer kontulari erretiratua zen, baina oraindik ere egiten zizkien errenta **aitorpenak** lehengo zenbait bezerori, Eta zer adierazi nahi digu "egoera kafkiano" bat bizi izan duela dioskunak?: haren errenta-**aitorpenaren** paperak bizpahiru egunez galdutzat eman dituztela, ziur aski. Koro Navarro

Zerga **aitorpena** zehatzago egiteko eskubidea beharko genuke, bai. Edorta Jimenez

Arerio bati egindako beste ohore-**aitorpen** bat gogoratzen zait Lawrence-ren Seven Pillars of Wisdom obraren amaierako kapituluetatik; Lawrence-k alemanen aitzinoste baten adorea laudatu eta honela dio: [...]. Juan Garzia

Fede-**aitorpen** bat idatzi zuen torturei ihes egiteko, baina idatzi ondoren, osasun egoera negargarriak ez zion sinatzen utzi. Juan Martin Elexpuru

Eskatu gabeko azalpena erru **aitorpen** garbia izan ohi da. Joxerra Garzia

Ez zian maitasun-**aitorpenik** egiten han, kezkarazteko moduko aitorpen erabat tolesgabeak baizik. Xabier Olarra

Orduan jakin nuen nik Monika betiko galdua nuela eta atera nintzen komisariatik, bere etxean idatzirik utzi nuen maitasun **aitorpena** desegiteko asmoarekin. Joxean Agirre

5 aitortza.

Izan ere, penitentziaren auzitegi misteriotsuan sakramentuaren parte nagusia izaten da bekatuen **aitorpena**. Juan Martin Elexpuru

Tutik ez duzu oraingoan harengandik espero, ez bada zure bekatuen **aitorpena** adi dezala eta haien barkamena eman diezazula. Xabier Montoia

6 errenta aitorpena.

Aitorpena egitera behartuta daude 8.500 eurotik gorako diru sarrerak izan dituztenak. Berria - Ekonomia

Aitorpenen %85 izango dira autolikidazioak. Berria - Ekonomia

352.000 gipuzkoarrek baino gehiagok atera beharko dituzte kontuak, baina ogasunak aurreratu duenez, hiru laurdenek baino gehiagok hartzeko **aitorpenak** izango dituzte (271 milioi euro itzuliko ditu ogasunak). Berria - Euskal Herria

Orotara, herrialdeko 1.285 bulegotan egin ahal izanen da **aitorpena**. Berria - Ekonomia

Iruarrizagak jakinarazi zuenez, 529.321 **aitorpen** espero dituzte: 431.111 lirateke itzulketak, eta 98.210 positiboak. Berria - Ekonomia

Aitorpena berandu igorri dutenek isuna pagatu beharko dute. Berria - Ekonomia

Guztira, 74.309 gipuzkoarrek jaso dituzte aurre-likidatutako **aitorpenak**, eta honezkero, %65ek baiezkoa eman diote. Berria - Ekonomia

Borondatezko **aitorpena** egiteko aldia joan den ekainaren 15ean amaitu zen, "eta, beraz, Ogasunari dagokio orain neurriak hartzea", azpimarratu zuen. Berria - Ekonomia

Hiru laurdenek itzultzeko **aitorpenak** izango dituzte (1.008 euro, batez beste), eta ordaintzekoak gainerakoek (1.521 euro). Berria - Ekonomia

· Horiek, ados egonez gero, aukera dute telefono dei soil baten bidez, nahiz Internetez adostasuna azaldu eta errenta zergaren **aitorpena** egiteko. Berria - Ekonomia

Epetik at 155 ondare **aitorpen** jaso ditu Gipuzkoako Ogasunak. Berria - Ekonomia

7 ***zerga aitorpen***

Zerga aitorpena zehatzago egiteko eskubidea beharko genuke, bai. Edorta Jimenez

Elizak, ordainean, agiri bat helarazten die etxera eta horrekin diru kopuru hori ken dezakete **zerga aitorpenetik**. Berria - Harian

Jendeek bere aldetik, egin duten emaitza **zerga aitorpenean** sartzen dute eta dagokien apaltzea egiten zaie horrela. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitorpen bat (17); **aitorpen bat egin** (4); **aitorpen egingo** (3); **aitorpen espero** (3); **aitorpen hau** (12); **aitorpen honek** (6); **aitorpen hori** (7); **aitorpen horrek** (3); **aitorpen jaso** (3); **aitorpen kopurua** (3); **aitorpena da** (6); **aitorpena egin** (12); **aitorpena egitean** (9); **aitorpena egiteko** (9); **aitorpena egiten** (6); **aitorpena egitera** (6); **aitorpena ere** (3); **aitorpena eta** (5); **aitorpena ez** (3); **aitorpena lortzeko** (4); **aitorpenak egiteko** (4); **aitorpenak egiteko** (4); **aitorpenak ere** (3); **aitorpenak ere** (3); **aitorpenak ez** (4); **aitorpenak ez** (4); **aitorpenaren bidez** (3); **aitorpenaren kanpaina** (3); **aitorpenekin hasita** (3); **aurkezturiko aitorpen** (3); **aurkezturiko aitorpen kopurua** (3); **autodeterminazio eskubidearen aitorpena** (3); **baten aitorpena** (5); **bekatuen aitorpena** (4); **beste aitorpen** (3); **buruzko aitorpen** (3); **dute aitorpena** (3); **egin zidan aitorpena** (3); **egindako aitorpenak** (4); **egindako aitorpenak** (4); **errenta aitorpen** (4); **errenta aitorpena** (28); **errenta aitorpena egitean** (9); **errenta aitorpenak** (8); **errenta aitorpenak** (8); **errenta aitorpenaren** (9); **errenta aitorpenaren kanpaina** (3); **errenta aitorpenean** (5); **eskubidearen aitorpena** (3); **eta aitorpen** (12); **eta aitorpena** (6); **eta aitorpenaren** (3); **euskal herriaren aitorpena** (3); **fede aitorpena** (3); **haren aitorpena** (3); **herriaren aitorpena** (3); **hiru lekukoren aitorpenaz** (8); **horren aitorpena** (3); **lekukoren aitorpenaz** (9); **maitasun aitorpenik** (3); **mentxakaren aitorpena** (3); **nire aitorpena** (5); **zidan aitorpena** (3); **zuen aitorpena** (4); **zure aitorpenak** (3); **zure aitorpenak** (3)

---

aitorpentxo *iz adkor* aitorpena.

Jendeari kontatu ohi zionez, isilpeko **aitorpentxoak** eginez kontatu ere, loreak maite zituen. Mirentxu Larrañaga

-Maite ditut loreak -esan zuen, tupusteko isil-**aitorpentxo** haietako batean. Mirentxu Larrañaga

---

aitorrarazi, aitorraraz(i), aitorrarazren du *ad* aitortzera behartu.

Sakristaua atxilotzen edo hartzen dute bortizki; nahi diote **aitorrarazi** urreria hori non atxikitzen zuen gorderik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aitorrarazi nion, Floraz eta Rosaz gainera, beste emakumeren batekin, beste emakume askorekin, harremanak izan zituela. Jon Muñoz

Bien bitartean, alkatea pentsatzen ari zen zer-nolako torturaz **aitorraraziko** zion ustezko delitua eta zein heriotza motaz hilaraziko zuen. Askoren artean

Beste batzuk, berriz, sotilkiago, hutsaren eta garbi-distira zorrotz-zorrotzaren bitartez **aitorrarazten** dute beren nagusigoa: hala egiten omen zuen Mussolinik Venezia Jauregian. Juan Garzia

Postari hura atxilotu zuten zenbait egun lehenago eta gutunak nork pasarazten zizkion **aitorrarazi** zioten. Eneko Bidegain

Aitorrarazi arte zigortzen ditugu, sekula ez luzeago. Xabier Montoia

Neure herri Israeli santu naizela **aitorraraziko** diot, eta ez diot utziko neure izen santua gehiago belzten. Elizen arteko biblia

Eta gure mende hartuko dugu han zer dabilen **aitorrarazi** arte. Xabier Olarra

Mutikoek oinazetu egin zuten hil baino lehenago, dirua non zeukan **aitorrarazteko**. Gotzon Garate

-Zin egin iezadak deusek ere ez diala **aitorraraziko** ez nor haizen, ez nora hoan! Karlos Zabala

Norbait ederki zafratu bide zuten haien guzien **aitorrarazteko**. Eneko Bidegain

---

aitorrentzule *iz* konfesorea.

Pertsonalitate elizako eta zibil ohargarrien adiskide eta/edo **aitorrentzule** izan zen. Joan Mari Lekuona

---

aitorrera *iz* aitormena.

Bilkurako eztabaidak, kideen larderia keinuak, kontra-erreformatzaileen ekintza gogorrak ahantziak nituelako **aitorrera** zor dizut irakurle. Itxaro Borda

aitorrezin *izond* ezin aitortu dena.

Lan-eremua ez zian eskas, gehienek txantajerako behar diren bi baldintzak betetzen baitituzte: sekretu **aitorrezinak** eta kontu korrente pollita. Aingeru Epaltza

Esamesek ziotenez, Hermannen aitak fabore **aitorrezinak** egin omen zituen soldadutzatik libratzeko. Anjel Lertxundi

Bizitzak zentzua izan dezan, krimen larri **aitorrezinak** egin beharko dira. Joseba Sarrionandia

Baditugu grina asegaitzak, joera ilunak, ahultasun **aitorrezinak**, apetaldi inozoak, frustrazio ezkutuak, barne-aldaketa irrazionalak. Pako Aristi

Erran dezadan, bidenabar, zeure baitan ezkutatzen diratekeen misoginia, pedofilia, manikeismo, xenofobia, judeomasonismo eta bertze hainbat grina **aitorrezin** islatzen direla aski ontsa liburuxka ziztrin horretan. Jon Arretxe

Halako barne-poz **aitorrezinaren** bulkadaz, presidentea eriz erakusten zion polizia lagunari: [...]. Itxaro Borda

Esan diat geroago ulertu nuela egiazaletasunean bere babeslekua bilatzen duena beldur izaten dela, ea egunen batean bizitza ez ote zaion benetako sekretu **aitorrezinez** beteko. Xabier Olarra

Halakoak entzutean, Sedó doktoreak hainbat hilabete lehenago esandako hitz mingarriak -mingarri bezain **aitorrezinak**- datozkio burura senarrari. Imanol Zurutuza

Halako batean, bertako abadeek harrapatu eta gogotik egurtu zituzten, bekaturik **aitorrezinena** egin balute bezala, odola atera arte. Paddy Rekalde

Ez literaturaren historia, baizik eta alboko zurrumurruarena, eguneroko idazketarena, hain arin iraungitzen dena, ezen obraren estatusa ez duen sekula bereganatzen edo berehala galtzen duen; azpiliteraturen azterketa, almanakaena, aldizkari eta egunkariena, arrakasta iheskorrena, egile **aitorrezinena**. Xabier Arregi

"Aitorrezinezko mina egiten du", dio Arresek. Berria - Kultura

---

aitortegi *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi) iz* elizetan, bekatuen aitorpena egiteko lekua. ik **aitorleku**.

Ustekabeak zakarrontzira bota nahi ditu, bekatariak **aitortegian** bekatuak goitikatzen dituen eran, bizimodu berri bat hasiko duela sinetsirik une batez. ETC-literatura, saiakera

Izena Serafin, izana ez: gezurti, parte txarreko, malapartatu deitu zidan; ez zitzaion aski iruditu, nonbait, eta **aitortegitik** atera eta negar-malkoak atera zizkidan kaskarreko bat eman zidan hatz-koskoez. ETC-literatura, saiakera

-Hobe honela -erantzun dit Delgadok, **aitortegiaren** barrutik-, zenbat eta diskretuago jokatu, hobe. ETC-literatura, saiakera

Istantean, Joxe bere gordelekutik irten, emakumearen ondotik igaro, eta **aitortegira** sartzen da. ETC-literatura, saiakera

Izatez, ez genuen edukazio sexualik izan, ez bada gure bizitzako zirrikitu guztietara barreiatzen zen **aitortegietako** beldur luze beltzak emana. ETC-prentsa

Lehenean gaude, **aitortegitik aitortegira** kontseilu eske ibiltzen ginan garaian bezelaxe. ETC-prentsa

.... Izatez, ez genuen edukazio sexualik izan, ez bada gure bizitzako zirrikitu guztietara barreiatzen zen **aitortegietako** beldur luze beltzak emana. ETC-prentsa

DON LUIS **aitortegian** sartuta dago. Burua ukitzen ari da. ETC-telebista

Kideekin batzartu ohi da banan banan, " **aitortegia** " deritzon prozesuan, non estatu-buru bakoitzak gai zehatz bati buruzko galdeketari erantzuten dion eta informazio berezia "aitortzen". ETC-entziklopedia

---

aitortu, aitor(tu), aitortzen **1** du *ad* huts bat edo gorde nahi den zerbait adierazi.

Jainko handi eta santua naizela agertuko dut eta nazio askok **aitortuko** naute. Elizen arteko biblia

Gotzaina, zeharo txunditurik, anaiengana itzuli zen, eta lehen hitzez errua **aitortuz**, hitza berreskuratu zuen. Askoren artean

Orduan, horren arrazoia jakin nahirik, beren grina **aitortu** zioten elkarri. Elizen arteko biblia

Aitortu orain zeuen bekatua Jaunari, zeuen gurasoen Jainkoari, eta egizue haren nahia. Elizen arteko biblia

2 bekatuez mintzatuz, aitortzan entzun.

Gure bekatu guztiak apaizari **aitortu** behar dizkiogu. Askoren artean

3 ezagutu, onartu.

Egia **aitortu** nion: [...]. Ramon Saizarbitoria

Pentsioa eskatzeko asmoa zuela **aitortu** zion, horretarako Burgosera joan beharra izango zuen arren. Ramon Saizarbitoria

Eta hala aitortzen ez badu, bera ere ez du **aitortuko** Jainkoak. Elizen arteko biblia

Senera etorri zenean, Frantzisko santuaren otoitzaren indarra **aitortu** zuen. Joanes Urkixo

Berehala etxe hartara itzuliz, bere lotsaren arrazoia argi eta garbi **aitortu** zuen denen aurrean. Askoren artean

Frantziskok bere asmoa **aitortu** zion. Askoren artean

Idazkiok ederki azaltzen digute, orobat, autorearen giza eta espiritu-maila paregabea: kristau-tradizio osoak **aitortu** dio hori Frantziskori eta gaur egun kristau ez direnen artean ere aitortzen zaio. Askoren artean

Garbi **aitortu** beharra dago Jainkoa egiatia dela; gizon-emakume guztiak, berriz, hitz ustelekoak, Liburu Santuak dioen bezala. Elizen arteko biblia

Jesusek berak **aitortua** zuen profeta ez dutela bere herrian aintzat hartzen. Elizen arteko biblia

Ez zenuen, izan ere, karismarik (zerorrek askotan **aitortua**), ez zinen garbi-jator horietakoa, etsai-lagun kolaborazionista sasikoa zinen jendaila buru-zapal ortogonalarentzat. Iñaki Segurola

4 (era burutu izenondo gisa)

Mantecon presoa zen garbiketen arduraduna, hiltzaile **aitortua**, inguratu eta hankekin esku izoztuak zanpatzen zizkien garbiketan ari ziren presoei. Jokin Urain

Ni ordurako ateo **aitortua** eta konbentzitua nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Gauza **aitortua** da, sendagileek berek ere erabiltzen dute; horietako ezagunenetako batek, Charcot jaunak, lanbide bezala darabil; ez dago zalantzarik, beraz, magnetismoa bada, izan. Josu Zabaleta

Horixe da, hain zuzen, Erromako lehiaketaren helburu **aitortua**. Josu Zabaleta

Euskal Herrian bezala Europan ere Otegi solaskide ezagun eta **aitortua** dela iritzi zion. Berria - Euskal Herria

Gatazka **aitortuak** diren lekuetan alde batekoen zein bestekoen biktimak hartzen dira aintzat. Berria - Euskal Herria

Filipe Bidart arrastatu zuten goizean, euskal irratiak entzun zituena harrituko zen: irratietara deitzen zuten jendeen etsipen **aitortuak** eta sostenguzko lekukotasunak aditzean ematen zuen, bat-batean, geriza intelektual bat erortzen zitzaiola euskaldun arruntari. Itxaro Borda

Esandako guztia garbi frogatuta dagoela eta gizakiaren benetako interesen aldekoa dela sinetsi behar da, baldin eta norbait aginpide **aitortuarekin** badago hau guztia aurrera eramateko prest. Juan Martin Elexpuru

Martxoaren 14ko porrot **aitortuaren** ondoren politika egiteko eta mezuak emateko moduak moldatu edo egokitu beharra zeukatela adierazi zuten EAEko PPko hainbat burukidek. Berria - Euskal Herria

Errepublika herriaren arazoa bada eta eskubide **aitortuen** gainean eraikita ez dagoen herririk existitzen ez bada, ez eta justiziarik gabeko eskubiderik, ondorioz eta zalantzarik gabe, justiziarik ez dagoenean ez dago errepublikarik. Imanol Unzurrunzaga

Orain, bide eginagoa eta **aitortuagoa** ere badaukadan arren, ez zait ezabatzen idazle-idazle ez izatearen sentsazioa. Ana Urkiza

Zelula gorrietako militante **aitortuenetako** baten kontra egindako salaketa zentzugabea. Rafa Egiguren

---

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aitortu ahal (7); **aitortu arren** (40); **aitortu baino** (7); **aitortu baitu** (5); **aitortu baitzidan** (5); **aitortu baitzuen** (8); **aitortu bazuen** (4); **aitortu bazuen ere** (4); **aitortu behar** (448); **aitortu behar badut** (10); **aitortu behar da** (58); **aitortu behar dizuet** (5); **aitortu behar dizut** (15); **aitortu behar du** (6); **aitortu behar dugu** (20); **aitortu behar dut** (137); **aitortu behar dute** (5); **aitortu behar izan** (50); **aitortu behar nuen** (11); **aitortu behar zaie** (5); **aitortu behar zaiela** (6); **aitortu behar zaio** (13); **aitortu behar zuen**

(4); **aitortu beharko da** (4); **aitortu beharko dute** (4); **aitortu beharko duzu** (7); **aitortu beharra** (144); **aitortu beharra dago** (47); **aitortu beharra daukagu** (8); **aitortu beharra daukat** (32); **aitortu beharra dizut** (4); **aitortu beharra dut** (19); **aitortu beharra zeukan** (5); **aitortu beharrak** (4); **aitortu beharrean** (27); **aitortu beharrean nago** (15); **aitortu beharrekoa** (6); **aitortu beharrik** (5); **aitortu bere** (4); **aitortu bezala** (19); **aitortu die** (9); **aitortu digu** (19); **aitortu dio** (51); **aitortu dio berriari** (21); **aitortu diot** (11); **aitortu diote** (4); **aitortu dit** (15); **aitortu ditu** (7); **aitortu du** (518); **aitortu du bere** (6); **aitortu du eta** (4); **aitortu du ez** (18); **aitortu du lasserrek** (4); **aitortu duen** (9); **aitortu duenez** (38); **aitortu dut** (7); **aitortu dute** (77); **aitortu dutenez** (8); **aitortu egia** (4); **aitortu egin** (47); **aitortu egin behar** (11); **aitortu egin zuen** (18); **aitortu egiten** (8); **aitortu ere** (28); **aitortu ere egin** (7); **aitortu eta** (74); **aitortu eta errespeta** (4); **aitortu eta errespetatu** (6); **aitortu ez** (35); **aitortu ezin** (4); **aitortu gabe** (18); **aitortu izan** (30); **aitortu izan du** (8); **aitortu nahi** (85); **aitortu nahi ez** (19); **aitortu nahi izan** (7); **aitortu nien** (4); **aitortu nion** (59); **aitortu nuen** (10); **aitortu ohi** (5); **aitortu omen** (4); **aitortu ondoren** (17); **aitortu ostean** (5); **aitortu zen** (5); **aitortu zidan** (78); **aitortu zidan behin** (4); **aitortu zidanez** (10); **aitortu zien** (18); **aitortu zieten** (4); **aitortu zigun** (15); **aitortu zigunez** (6); **aitortu zion** (142); **aitortu zion bere** (4); **aitortu zion berriari** (7); **aitortu zion ez** (5); **aitortu zioten** (12); **aitortu zituen** (5); **aitortu zituzten** (4); **aitortu zuela** (10); **aitortu zuelako** (4); **aitortu zuen** (888); **aitortu zuen atzo** (65); **aitortu zuen bere** (12); **aitortu zuen eta** (7); **aitortu zuen ez** (25); **aitortu zuen herenegun** (6); **aitortu zuen oso** (5); **aitortu zuenez** (67); **aitortu zuten** (80); **aitortu zutenez** (9)

apalki aitortu (6); **ari dela aitortu** (13); **arrazoi zuela aitortu** (4); **atzo aitortu** (28); **atzo aitortu zuen** (19); **atzo aitortu zuenez** (7); **aurrean aitortu** (13); **aurrean aitortu zuen** (7); **aurretik aitortu** (6); **azkenean aitortu** (7); **badagoela aitortu** (4); **badela aitortu** (7); **badirela aitortu** (7); **baina aitortu** (36); **baina aitortu behar** (19); **baina aitortu beharra** (4); **baino gehiagok aitortu** (4); **baino gehiagotan aitortu** (6); **balioa aitortu** (4); **bat aitortu** (9); **bat aitortu behar** (4); **bat dela aitortu** (5); **batean aitortu** (14); **batek aitortu** (8); **batez aitortu** (4); **behar duela aitortu** (5); **beharko duela aitortu** (4); **bekatua aitortu** (5); **bekatuak aitortu** (9); **bekatuak aitortu nahi** (5); **bera aitortu** (4); **beraiek aitortu** (5); **berak aitortu** (95); **berak aitortu bezala** (5); **berak aitortu du** (17); **berak aitortu duenez** (12); **berak aitortu zuen** (18); **berak aitortu zuenez** (15); **bere buruari aitortu** (9); **bere errua aitortu** (13); **berehala aitortu** (4); **berriari aitortu** (9); **beti aitortu** (6); **bezala aitortu** (6); **biek aitortu** (6); **biek aitortu zuten** (4); **buruak aitortu** (4); **buruari aitortu** (19); **buruari aitortu behar** (4); **buruari aitortu nahi** (11); **dabilela aitortu** (6); **dagoela aitortu** (33); **dagoela aitortu du** (12); **dagoela aitortu zuen** (12); **daitekeela aitortu** (8); **daudela aitortu** (18); **daudela aitortu du** (4); **daudela aitortu zuen** (7); **daukala aitortu** (5); **dela aitortu** (152); **dela aitortu arren** (12); **dela aitortu behar** (7); **dela aitortu du** (39); **dela aitortu dute** (6); **dela aitortu zuen** (52); **dela aitortu zuten** (5); **den dena aitortu** (5); **dena aitortu** (20); **dena aitortu behar** (7); **denek aitortu** (4); **deplauki aitortu** (7); **diela aitortu** (4); **diola aitortu** (17); **diola aitortu du** (5); **diola aitortu zuen** (8); **direla aitortu** (50); **direla aitortu arren** (4); **direla aitortu du** (10); **direla aitortu zuen** (16); **dituela aitortu** (28); **dituela aitortu du** (12); **dituela aitortu zuen** (8); **dituztela aitortu** (9); **du aitortu** (7); **du aitortu behar** (4); **dudala aitortu** (6); **dudala aitortu behar** (4); **duela aitortu** (92); **duela aitortu arren** (4); **duela aitortu du** (36); **duela aitortu zuen** (34); **dut aitortu** (6); **dutela aitortu** (35); **dutela aitortu du** (15); **dutela aitortu zuen** (9); **dutela aitortu zuten** (6); **egia aitortu** (31); **egia aitortu behar** (15); **egia osoa aitortu** (4); **egin aitortu** (8); **egin duela aitortu** (7); **egin zuela aitortu** (7); **egin zutela aitortu** (4); **egiten dela aitortu** (4); **ematen diola aitortu** (6); **entrenatzaileak aitortu** (6); **erabakitzeko eskubidea aitortu** (4); **ere aitortu** (70); **ere aitortu behar** (17); **ere aitortu beharko** (4); **ere aitortu beharra** (4); **ere aitortu du** (9); **ere aitortu zuen** (15); **ere badela aitortu** (5); **errua aitortu** (20); **errua aitortu zuen** (10); **errudun aitortu** (5); **eskubidea aitortu** (21); **eskubidea aitortu behar** (6); **eskubideak aitortu** (8); **espero aitortu** (4); **eta aitortu** (104); **eta aitortu behar** (23); **eta aitortu beharra** (11); **eta aitortu du** (14); **eta aitortu egin** (5); **eta aitortu ere** (6); **eta aitortu nion** (4); **eta aitortu zuen** (11); **eta berak aitortu** (5); **eta garbi aitortu** (7); **eta hala aitortu** (4); **eta hori aitortu** (4); **euskal herria aitortu** (16); **ez aitortu** (16); **ez dagoela aitortu** (6); **ez du aitortu** (6); **ez duela aitortu** (10); **ez nion aitortu** (4); **ez zela aitortu** (6); **ez zuela aitortu** (4); **ez zuen aitortu** (7); **ezer aitortu** (6); **ezin aitortu** (7); **gabe aitortu** (4); **garbi aitortu** (12); **garrantzia aitortu** (4); **gehiagok aitortu** (4); **gehiagotan aitortu** (6); **gero aitortu** (7); **geroago aitortu** (5); **gisa aitortu** (4); **gizonak aitortu** (4); **guztia aitortu** (4); **guztiak aitortu** (5); **guztiek aitortu** (4); **hala aitortu** (24); **hala aitortu zuen** (7); **halakorik aitortu** (4); **halaxe aitortu** (12); **handia aitortu** (7); **hartu zuela aitortu** (6); **hau aitortu** (7); **hauxe aitortu** (7); **herria aitortu** (17); **herria aitortu eta** (9); **hil zuela aitortu** (4); **honetan aitortu** (4); **hori aitortu** (27); **hori ere aitortu** (6); **horixe aitortu** (5); **horregatik aitortu** (5); **horrek aitortu** (5); **horrela aitortu** (13); **horrela aitortu zuen** (4)

agarikanok aitortu (5); **aitortua du** (4); **aitortua eta** (5); **aitortua izan** (7); **aitortua zuen** (5); **aitortuak eta** (4); **aitortuak izan** (5); **aitortuko badut** (6); **aitortuko balu** (4); **aitortuko dizuet** (4); **aitortuko dizut** (19); **aitortuko du** (24); **aitortuko du apaizak** (4); **aitortuko dugu** (4); **aitortuko dut** (24); **aitortuko dute** (10); **aitortuko duzu** (5); **aitortuko ez** (10); **aitortuta ere** (4); **bat aitortuko** (5); **berak aitortua** (6); **dela aitortuko** (7); **egia aitortuko** (14); **egia aitortuko badut** (6); **ere aitortua** (4); **ere aitortuko** (7); **eskubidea aitortuko** (4); **eta aitortuko** (5); **garbi aitortuko** (4); **garbitzat aitortuko** (8); **garbitzat aitortuko du** (7); **gero aitortuko** (4); **gisa aitortuak** (4); **inoiz aitortu** (5); **inori aitortu** (11); **izan aitortu** (6); **izan aitortu zuen** (5); **izan daitekeela aitortu** (6); **izan dela aitortu** (16); **izan direla aitortu** (4); **izan dituela aitortu** (5); **izan duela aitortu** (5); **izan zela aitortu** (22); **izan zirela aitortu** (7); **izana aitortu** (8); **izana aitortu zuen** (4); **izango dela aitortu** (15); **jokalariak aitortu** (4); **k aitortu** (4); **kapitainak aitortu** (4); **kutsatutzat aitortuko** (9); **kutsatutzat aitortuko du** (8); **larretxeak aitortu** (4); **lehen ministroak aitortu** (4); **maitasuna aitortu** (4); **meritua aitortu** (4); **ministroak aitortu** (4); **nahiz eta aitortu** (12); **naizela aitortu** (5); **nazabalek aitortu** (4); **neure buruari aitortu** (6); **nintzela aitortu** (7); **nion aitortu** (5); **nola aitortu** (8); **osoa aitortu** (7); **peñ presidenteak aitortu** (6); **sekula aitortu** (8); **sekula aitortuko** (7); **zaiola aitortu** (11); **zaiola aitortu du** (5); **zebilela aitortu** (4); **zegoela aitortu** (18); **zegoela aitortu zuen** (5); **zela aitortu** (93); **zela aitortu behar** (8); **zela aitortu du** (5); **zela aitortu zidan** (6); **zela aitortu zion** (7); **zela aitortu zuen** (41); **zela aitortu zuten** (6); **zen aitortu** (4); **zera aitortu** (6); **zerbait aitortu** (12); **zerbait aitortu behar** (6); **zergatik ez aitortu** (5); **zeukala aitortu** (4); **ziela aitortu** (4); **ziela aitortu zuen** (4); **zilegitasuna aitortu** (4); **ziola aitortu** (10); **ziola aitortu zuen** (6); **zirela aitortu** (16); **zirela aitortu zuen** (7); **zituela aitortu** (24); **zituela aitortu ondoren** (4); **zituela aitortu zuen** (14); **zitzaiola aitortu** (5); **zuela aitortu** (66); **zuela aitortu du** (6); **zuela aitortu zion** (5); **zuela aitortu zuen** (33); **zuen aitortu** (9); **zuen aitortu nahi** (6); **zutela aitortu** (12); **zutela aitortu du** (4)

aitortzea da (10); **aitortzea eta** (22); **aitortzea nahi** (7); **aitortzeko eskatu** (16); **aitortzeko eta** (12); **aitortzeko gai** (4); **aitortzeko prest** (6); **autodeterminazio eskubidea aitortzea** (11); **bekatuak aitortzeko** (4); **dela aitortzeko** (9); **duela aitortzea** (5); **egia aitortzeko** (11); **eskubidea aitortzea** (19); **eskubidea aitortzeko** (7); **eskubidea aitortzeko eskatu** (4); **eskubideak aitortzea** (7); **eskubideak aitortzeko** (4); **estatus politikoa aitortzea** (4); **euskararen ofizialtasuna aitortzeko** (4); **ez aitortzea** (5); **ez aitortzeko** (4); **hori aitortzea** (6); **izaera politikoa aitortzea** (5); **ofizialtasuna aitortzeko** (5); **ofizialtasuna aitortzeko eskatu** (4); **politikoa aitortzea** (12)

aitortzen ahal (4); **aitortzen ari** (6); **aitortzen badu** (5); **aitortzen baitu** (4); **aitortzen baitzuen** (5); **aitortzen baldin** (4); **aitortzen da** (8); **aitortzen die** (4); **aitortzen digu** (7); **aitortzen dio** (23); **aitortzen dion** (11); **aitortzen diote** (10); **aitortzen dit** (4); **aitortzen ditu** (4); **aitortzen dituen** (4); **aitortzen dizkio** (4); **aitortzen dizuet** (6); **aitortzen dizut** (31); **aitortzen du** (155); **aitortzen du bere** (6); **aitortzen du ez** (4); **aitortzen duen** (24); **aitortzen duen bezala** (8); **aitortzen duena** (5); **aitortzen duenak** (5); **aitortzen duenez** (12); **aitortzen dugu** (13); **aitortzen dut** (132); **aitortzen dut neure** (5); **aitortzen dute** (72); **aitortzen duten** (9); **aitortzen dutenez** (5); **aitortzen duzu** (8); **aitortzen ere** (5); **aitortzen eta** (18); **aitortzen ez** (50); **aitortzen zaie** (7); **aitortzen zaien** (4); **aitortzen zaio** (9); **aitortzen zaion** (9); **aitortzen zaizkion** (4); **aitortzen zidan** (6); **aitortzen zion** (14); **aitortzen zioten** (7); **aitortzen zuela** (5); **aitortzen zuen** (54); **aitortzen zuenez** (4); **aitortzen zuten** (15); **aukera aitortzen** (4); **aurrean aitortzen** (6); **autodeterminazio eskubidea aitortzen** (5); **baina aitortzen** (13); **baina aitortzen dut** (6); **bat aitortzen** (5); **bekatuak aitortzen** (5); **bera aitortzen** (4); **berak aitortzen** (33); **berak aitortzen du** (7); **berak aitortzen duen** (5); **berak aitortzen duenez** (4); **berak aitortzen zuen** (5); **berak aitortzen zuenez** (4); **berek aitortzen** (6); **bezala aitortzen** (6); **buruari aitortzen** (5); **dagoela aitortzen** (8); **dela aitortzen** (40); **dela aitortzen du** (13); **dela aitortzen dute** (5); **dena aitortzen** (4); **denek aitortzen** (6); **diola aitortzen** (5); **dira aitortzen** (4); **direla aitortzen** (10); **direla aitortzen du** (5); **du aitortzen** (8); **duela aitortzen** (10); **duela aitortzen du** (6); **dutela aitortzen** (8); **edo aitortzen** (4); **egia aitortzen** (7); **ek aitortzen** (4); **elkarri aitortzen** (4); **erabakitzeko eskubidea aitortzen** (4); **ere aitortzen** (24); **ere aitortzen du** (5); **eskubidea aitortzen** (22); **eskubideak aitortzen** (4); **eta aitortzen** (32); **eta aitortzen dut** (12); **eta garbi aitortzen** (9); **eta zuei aitortzen** (4); **eurek aitortzen** (5); **ez diola aitortzen** (4); **ez du aitortzen** (6); **garbi aitortzen** (11); **guztiak aitortzen** (6); **guztiek aitortzen** (9); **guztiek aitortzen dute** (7); **hala aitortzen** (19); **hala aitortzen du** (4); **hala aitortzen dute** (4); **hau aitortzen** (4); **hitzez aitortzen** (5); **holakorik aitortzen** (4); **hori aitortzen** (8); **osoa aitortzen** (4); **zela aitortzen** (9); **zen hitzez aitortzen** (4); **zuei aitortzen** (4); **zuei aitortzen dizuet** (4); **zuela aitortzen** (7); **zuen aitortzen** (4); **zutela aitortzen** (4)

aitortzera behartua (5); **aitortzera behartzen** (4); **aitortzera eta** (4); **egia aitortzera** (7); **errua aitortzera** (4)

---

aitortuki *adlag* aitortuta.

Savater liberala, Maria San Gil eta PPren eminentzia grisa duzu Donostian, Madrilen progresia sozialista liluratuaren faro argitsua da, edo izana da oraintsu arte (nahiz haren pentsaera, berak **aitortuki**, sozialista ez beste edozer izan den betidanik). Joxe Azurmendi

---

aitortza 1 *iz* bekatuak apaiz bati aitortzean datzan sakramentua.

Aitortza eta jaunartzea. Askoren artean

Krisia, **aitortza**, aldaketa, iniziazioa, sinbolismoa dakar konbertsioak. Joseba Zulaika

Burlak alde batera utzi bai eta ekarri oraintxe konfesore bat nire **aitortza** entzun dezan, eta eskribau bat nire testamentua jaso dezan. Patxi Ezkiaga

Hacquinek isilean gorde zuen **aitortza** hori 1953ra arte, eta orduan gutun bat bidali zuen Libération egunkarira, Zolaren hiltzaileak bere krimena aitortu ziola esanez. Karlos Zabala

Zerbitzari leial eta zentzuduna da, huts egiten duen bakoitzean, bere burua luzaro gabe zigortzen duena, barrutik damuz eta kanpotik **aitortzaz** eta ordaina betez. Askoren artean

Emakume batek karmeldar bati egindako **aitortzan** frantziskotar batek seduzitu duela esan du; karmeldarrak frantziskotarra salatu behar du. Juan Martin Elexpuru

Apaiz batek **aitortzan** erregearen edo Estatuaren aurkako konspirazioa jakiten badu, berehala jakinerazi behar diela epaileei. Juan Martin Elexpuru

Nik, egia esan, Jainkoaren errukiari eta graziari esker, ez dut gogoan **aitortzaren** eta hoben-ordainaren bidez zuzendu gabeko inolako bekaturik. Patxi Ezkiaga

Emakumeekin hitz egiten jardutea arinkeria zela, **aitortzako** sakramentuan edo arimaren salbamenari buruzko aholkuak emateko izan ezik. Askoren artean

Hunkituta eta negarrez, **aitortza** gogotsu egin eta biziera zuzenduko zuela agindu zien. hobe da jardun arin hauetako batzuk ematea, harik eta bere bekatuen **aitortza** egin arte. Askoren artean

Kofesatzen nintzen erregularki, ongi ibili ala gaizki eta programa antolatua zenez geroz, behar zen **aitortza** justifikatu, itxurazko bekatu serios zenbait ekarriz bizkarreko zaku pisuan. Piarres Aintziart

· Horrelakorik gertatzen zitzaionean, **aitortzara** jotzen zuen, bere hutsegiteaz lehenbailehen kitatzeko. Askoren artean

2 aitormena, aitorpena.

Aberri Egunaren atarian **aitortza** berezia egin nahi diegu ezker abertzaleko militante orori, espetxeetan, sasian, erbestean eta lanean tinko jarraitu duten guztiei, beren indarrik gabe ez legokeelako gauden tokira iristerik. Berria - Euskal Herria

Erreparatu, ordea, **aitortza** debotoaren balioari, santu egin ez ezik, santutasuna adierazi ere egiten baitu. Askoren artean

Aitortza politikoa: "Tortura dagoela eta sistematikoki erabiltzen dela politikoki aitortzea, torturak kaltetu guztion aurrean nolabaiteko errekonozimendu gisa". Berria - Euskal

Herria

Proposamenean euskal nazioaren **aitortza** juridikoa eskatzen duzue. Berria - Euskal Herria

Inori eginiko lehenengo **aitortza** horrek, gure lagunartea indartuko zuelakoan esan diot hori guztia, konfidentziak hurbilagotuko gintuelakoan, baina ez dit jaramonik egin. Hasier Etxeberria

Inori eginiko lehenengo **aitortza** horrek, gure lagunartea indartuko zuelakoan esan diot hori guztia, konfidentziak hurbilagotuko gintuelakoan, baina ez dit jaramonik egin. Hasier Etxeberria

Lehendabiziko **aitortzan** buruz ikasita zeraman, guztiz gauza transzendentala bailitzan, bere bekatu guztien zerrenda. Josu Zabaleta

Ez dago beste sendagairik norberaren ezagupena eta benetako **aitortza** egiazkoa baino. Hasier Etxeberria

Errukia, elkarrekiko **aitortza**, ez al dira amodioaren laguntzaileak? Andres Urrutia

Bat-batean esnatu eta negarrari eman zion, jendaurreko **aitortzaz** bere lehenagoko sentimenduak, nolabait zalantzaren lohiaz zikinduak, garbituz. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irun-Hondarribiko gure lagunartean aspaldian ikusi gabeko lagun minenari ere nekez egingo genion "Ederki gizendu haiz, txerri alaena", baino maitasun-**aitortza** esplizituagorik. Joxerra Garzia

Nazio **aitortza** hizpide euskal uruguaitarrek. Berria - Euskal Herria

Naziotasun **aitortza** egiteko bidea irekia zen beraz. Berria - Euskal Herria

Sistema ezberdintasunaren gainean egituratu denez, hainbat logika eta jarduera irauli gabe eskubide-berdintasun **aitortza** alferrikakoa da. Berria - Euskal Herria

4 aitorpena, onarpena.

Aitortza egin duela jakinik ere auzoek ez dute oraindik sinesten. Berria - Euskal Herria

Lehen harriak esaten zion bera zela gizonik indartsuena; zenbat aldiz ez ote dion **aitortza** errepikatu eta berretsi. Pako Aristi

Uste dut, gainera, baten batek ez duela izan merezi adina **aitortza** eta fama. Lourdes Oñederra

Euskaldunoi dagozkigun eskubideek "ez dutela **aitortzarik**" salatu zuten atzoko manifestazioan, eta Ikurren Legea Euskal Herriaren aurkako "beste eraso bat" dela azpimarratu. Berria - Euskal Herria

Elizari bere ondasunen zati bat eman gabe hiltzen zen gizon orori -**aitortzarik** gabe hiltzea deitzen zitzaion horri- jaunartzea eta hilobia ukatzen zitzaizkion. Iñaki Iñurrieta

Historiaren zati honi ez badiote **aitortzarik** eman nahi, argi esan dezatela, ezin baitugu sinetsi gobernu sozialista bateko Kultura ministroak nola esan dezakeen legalitatea Espainiako Gerra Zibilarekin hasten dela. Berria - Kultura

5 (-en atzikiaren eskuinean)

Ordezkariaren **aitortza**. Berria - Euskal Herria

Giovannino Guareschik inoiz ez du lortu literatur parnasoaren **aitortza** edo onarpena, are gutxiago Italian, bere sorterrian. Koldo Biguri

Kataluniaren nazio izaeraren **aitortza** nabarmendu zuen Masek, aurrerapausoaren adierazgarri. Berria - Euskal Herria

EHBNk egin asmo zuen proiektuaren oinarriak, besteak beste, euskal nazioaren **aitortza**, autodeterminazio eskubidearen errespetua, "Hego Euskadiren lurralde osotasuna", "Ipar Euskadirekin harremanak modu librean erabakitzeko eskubidea", euskararen ofizialtasuna eta sustapena "maila guztietan" eta, prozedurari dagokionez, "estatutua oinarrietatik modu herrikoian lantzea". Berria - Euskal Herria

Erabakitzeko eskubidearen **aitortza** baino gehiago, "euskal gizartearen borondate demokratikoaren errespetuan" jarri zuen azpimarra EBBko lehendakariak. Berria - Euskal Herria

Horrek gatazka politikoaren oinarrian dauden bi elementuren **aitortzari** eutsiko die, euskal herritarren subiranotasunari eta lurraldetasunaren **aitortzari**", azaldu zuen Larreinak. Berria - Euskal Herria

Espainiaren pluraltasunaren **aitortza** egiten du agiriak, baina batasuna azpimarratzen du, aldi berean: "Gure Konstituzioak nazio espainiarra aitortzen eta ezartzen du. Berria - Euskal Herria

Euskal gizarteak etorkizun politikoa modu libre eta baketsuan erabakitzeko eskubidearen **aitortza** izatea horren oinarri. Berria - Euskal Herria

Atxikimendu librea, borondate demokratikoa, herritarren hitza eta subiranotasunaren **aitortza**. Berria - Euskal Herria

Ahaztuak 1936-1975 elkarteko lehendakariorde Marcelo Alvarezek memoria historikoaren aldarria egin zuen atzo, eta gerrak eragindako "basakeriaren **aitortza**" egitea ezinbestekoa dela nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

Azkenean etsi behar izan zuten gurasoek, eta onartu, beren kontsolamendurako eta Mozart buruan izanik, musikariarena izan zitekeela lanbide duina, Enperadorearen **aitortza** jasotzeko modukoa ez bazen ere, bai, agian, Enperadorearen mendekoen eskerrona irabaztekoa. Felipe Juaristi

Euskal gizarteak etorkizun politikoa modu libre eta baketsuan erabakitzeko eskubidearen **aitortza** izatea horren oinarri. Berria - Euskal Herria

6 (izenondoekin)

Ene haurra, egidazu jaramon: berehala, batzarraren aurrean, lurrera apalduko zara eta, belauniko, **aitortza** publikoa egin. Juan Garzia

Euskal Herriaren **aitortza** politikoa berreskuratze aldera, Udalbiltzaren ustez, "euskal herritarrak -beste edozein naziotako kideak bezala- eskubide zibil eta politikoen jabe direla finkatu behar da". Berria - Euskal Herria

Ekimen horrek zelako **aitortza** juridikoa izan du orain arte? Berria - Euskal Herria

Aitortzarik intimoena bere bizitza "arrunta" zeneko garaikoa izan zen. Berria - Kultura

· Alemaniar erreformatu baten idurian, Augsburgoko **Aitortzako** kide hil nahi zuela erran omen zuen, azken hatsetan zelarik. Aingeru Epaltza

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zuen inolako misteriorik egiten hartaz nire aurrean, lehenago aipatu dudan nire **aitortza**-bertute bitxi horri esker. Juan Garzia

Igandean, Jondoni Jakobe parropiako bost herrietako 12 gaztetxok beren fedearen **aitortza** besta zuten, Laurent Pochelu apezak kudeaturik, Jan Battitt Caminondo zutelarik meza emaile. Herria

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Maitasun-**aitortzak** han ziren betiere, itzultzeko borondate errepikatuarekin batean, baina formula eta formalismo antza ikusten nien nik. Xabier Mendiguren Elizegi

Irun-Hondarribiko gure lagunartean aspaldian ikusi gabeko lagun minenari ere nekez egingo genion "Ederki gizendu haiz, txerri alaena", baino maitasun-**aitortza** esplizituagorik. Joxerra Garzia

Hobendun **aitortza** da berrikuntzetariko bat, alegia, hobendun aitortuz gero tratua lor daitekeela prokuradorearekin. Berria - Euskal Herria

Egia esan, ikuspegi honetan printzipioz gizadi osoari zabaltzen zaio gizatasun-**aitortza**, baita giza "miseria" askori ere. Askoren artean

Bizitzaren lehentasun **aitortzarekin** batera, bizitzaren balio maila desberdinen kontzientzia garbia behar da eduki. Joxe Azurmendi

9 (errentaz mintzatuz)

Zergak ordaintzea dagokien pertsonek euren borondatez **aitortza** egin dezaten, mekanismo berriak sortu dituzte. Berria - Ekonomia

Borondatezko epea amaitu izan arren, onartu zuen hobe dela bakoitzak bere borondatez **aitortza** egitea, "bestela zergadunak are eta isun handiagoa ordaindu beharko duela". Berria - Ekonomia

Jadanik badira indarrean **aitortza**-sistemak (hezkuntzan, Administrazioan, Osakidetzan...) eta, horregatik, EABk horien guztien arteko sistema eraginkorra osatzea proposatu du. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitortza da (6); **aitortza egin** (15); **aitortza egiteko** (9); **aitortza egiten** (5); **aitortza entzun** (4); **aitortza eta** (29); **aitortza eta erabakitzeko** (4); **aitortza hori** (8); **aitortza horrek** (4); **aitortza izan** (4); **aitortza politikoa** (12); **aitortzak entzuteko** (4); **aitortzak liburuan** (5); **aitortzaren eta** (4); **aitortzaz eta** (4); **baten aitortza** (6); **bekatuen aitortza** (4); **berriketa eta aitortza** (4); **erabakitzeko eskubidearen aitortza** (5); **eskubidearen aitortza** (11); **eskubideen aitortza** (4); **eta aitortza** (17); **eta aitortzak** (5); **euskal herriaren aitortza** (19); **euskal nazioaren aitortza** (4); **guztien aitortza** (4); **herriaren aitortza** (20); **herriaren aitortza eta** (10); **nazioaren aitortza** (5); **nire aitortza** (5)

aitortzaile *iz* bekatuak aitortzan entzuten dituen apaiza.

Lehenengo aldia balu bezalaxe, eta kontzientzi azterketa luze eta larria egin zuen **aitortzailearengana** joan aurretik; aulkiak betetzen zituzten mutiko, neska eta atso zahar guztiei utzi zien txanda pasatzen. Josu Zabaleta

---

aitortze *iz* huts bat edo gorde nahi den zerbait adieraztea.

Eta bide bakarra egia **aitortzea** zela erabaki nuen. Txillardegi

Batak bestearen akatsen ezagupena **aitortzea** da egia maitatzeak ezartzen digun eginbehar gorena. Xabier Olarra

Eta hori **aitortzeak**, esaterako, bideratu du adostasuna. Berria - Euskal Herria

Esan nahi baita bere buruari aitortua besteei **aitortzea** falta zitzaiola: bost urte haietan ezagun egin zituèn herriko gizon-emakumeei, esate baterako. Joan Mari Irigoien

Hori **aitortzea**, ordea, izugarria litzatekeelakoan, gupidaren simulakroak antolatzen ditu gizarteak, zaharren egoitzak adibide, ONGak, % 0,7a eta horrelakoak. Pako Aristi

Hori guztia aztertu beharko litzateke, gure ustez, ezinbestekoa baita, eta gero eta premiazkoagoa, unibertsitateari berez dagokion zeregina **aitortzea** noizbait. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eztabaida gorrietan sartzea da batzuei **aitortzea** besteei ukatzen zaiena. Iñigo Aranbarri

Anarentzat lotsagarria zen senarrak utzi zuela **aitortzea**. Alberto Ladron Arana

Gibraltardarrek ezinbestekotzat jotzen dute autodeterminazio eskubidea **aitortzea**, besteak beste, herritarrek erreferendum bidez erabaki dezaten konstituzio erreforma babesten duten Berria - Mundua

Hartaz, gizakiek kondenatzen duten oro gaitza bada, horren ondorio gisa onartu beharko genuke aldi hartan krimena zela Jesukristorengan sinestea eta fede hori **aitortzea**. Imanol Unzurrunzaga

Eta ohoragarri deritzozu ergeletan azkenekoa zarela inolako lotsarik gabe **aitortzeari**? Joxan Elosegi

---

aitta *iz adkor* aita.

Ez nazazu jo, **aitta**! Irene Aldasoro

Non, ordea, gau batez marinel haietako baten semea esnatzen den kolpetik oihuka esanez **"aitta** itsasoan hil zela". Josu Zabaleta

Aittak ez dit uzten. Fernando Rey

"Aitta?" dio xuxurlaka, nahasmendu kutsu batekin, botila erakusten diolarik. Oskar Arana

-Bai, **aitta**, nik... Irene Aldasoro

---

aittitta ik **aittitte**.

---

aittitte *(orobat **aittitta** g.er.) iz* aitita.

Gure aiton-amon, **aittitte**-amama bat baino gehiago akordatzen omen dira iragan San Markos egunez nola prozesio egiten zuten elizbiran, kyrieleisonak abestuz-eta. Pello Zabala

Goio astiro sartu zen eta **aittitte** aulki txikian eserita burua behiaren iztaian pausatuta topatu zuen. Joseba Sarrionandia

Aittitte mahaiburuan jarri zen afarirako, ama ere han zegoen, eta osabaizebak, eta lehengusu txikiak. Joseba Sarrionandia

Afalondoan **aittittek** zigarroa bildu, piztu eta astiro erreko zuen. Joseba Sarrionandia

Noizbait konprenitu dut **aittittek** antolatu zuen azken antzerki hark bazeukala beretzat trajedia tanta bat. Koldo Izagirre

Allikeneko guztiekin joaten nintzen, guraso eta aitona-amonekin (garai hartan lauetatik hiru bizirik, **aittitta** Iker salbu), baita Atxetako osaba Karmelo, izeko Primi, eta Paulo eta Gaxuxa lehengusuekin ere. Txillardegi

-Gure **aittitta** Lepantokoan hil zenaren legezkoak! Edorta Jimenez

Murelagara autobusa hartu eta joan beharko zuen **aittitte** eta amama bizi ziren baserri hartara. Joseba Sarrionandia

Aittitteren baserritik bistaz ikusten ziren ibarretan eta Kalaportu inguruko kostan imajinatzen zuen Goiok hitz egiten zela euskaraz. Joseba Sarrionandia

Burua makur, aitarenka, Jaungoiko on bat imajinatzeko ahalegin itzela egiten nuen, **aittitte** on bat izango zelakoan bizar zuriarekin. Joseba Sarrionandia

---

aitton ik **aitona**.

---

aittona *iz adkor* aitona.

Polizia gehiagok (eskerrak **aittona** hemendik berrogeita hamar bat kilometrora dagoen!) eta bero sapa kiskalgarri batek hartu naute Aostako geltokian jaitsi naizenean. Anjel Lertxundi

Bakoitza bere garaian, eta euria ere, "ttartteka" etxekoneko **aittonak** bi hortzen artetik zioen gisara, "ttartteka". Pello Zabala

---

aittondu ik **aitondu**.

---

aittu ik **aditu**.

---

aitu ik **aditu**.

---

aitxaki ik **aitzakia**.

---

aitxitxa *(corpusean ez dago; ETCn **52** agerraldi) iz adkor* aitona.

Eta azkenerako, hara neu ere, futbolari begira, edo gure **aitxitxak** esaten zuen bezala, foballari begira. ETC-literatura, saiakera

Zure **aitxitxak** jakin izan balu... ETC-literatura, saiakera

Nire **aitxitxa** Patxok Iruñea izeneko kafetegia zuen, eta, alargunduta, bi alaba zituen. ETC-literatura, saiakera

Gu Berangoko beste batzuekin geunden, eta zu hantxe berriketan edo, zeren guk **aitxitxa** ikustean haur-kotxean ez baitzegoen zure arrastorik. ETC-prentsa

Hura bai krisia, e **aitxitxa**? ETC-prentsa

Nolanahi den, iritsi zen Matia famatura eta harrigarria, gure **aitxitxa**, berreskuratze eta indartze prozesuari ekin behar ziona, gaixo terminalen sailean jarri zuten. ETC-prentsa

Beharbada **aitxitxa** bien aldetik, baina ez gurasoen aldetik. ETC-prentsa

Muxu handi bat amamaren eta **aitxitxaren** partetik. ETC-prentsa

Aitona: "aitaita, aitajaun, aitatxi, aitite, aitxitxe, **aitxitxa**, aikike...". ETC-entziklopedia

---

aitzaki ik **aitzaki**a.

---

aitzakia *(ETCn **27.226** agerraldi; orobat **aitzaki** eta **aitxaki**)* **1** *iz* gezurretako arrazoia; akatsa, hutsa.

Guk **aitzakia** gutxiago ibiltzen genian: ti-ta, gero eliza pasa eta segidan dozena bat ume! " Pablo Sastre

Sarritan aipatu izan dizut planen bat edo beste iganderako, eta zuk beti bilatu izan duzu **aitzakiaren** bat. Xabier Paya

Aitzakia bat bestearen atzetik topatzen zuen ni zirikatzeko eta gero zigortzeko. Mirentxu Larrañaga

Ez dakit **aitzakia** hutsa ez ote den; ez dakit benetan zenbateko ahaleginak egin dituen Ismetek nire bisa lortzeko. Jon Arretxe

Ez dugu inongo **aitzakiarik**. Felipe Juaristi

Bitarteko bat da objektua, **aitzakia** bat, segurtasuna ematen du, segurantza, konfiantza. Joxan Elosegi

Ardo zaharrak **aitzakiarik** behar ez duen bezala. Txillardegi

Ingelesaren erasoari aurre egitea zen **aitzakia**, baina isiltzen zen arren, Estatu frantseseko gainerako hizkuntzen lehiari ere jarri nahi zitzaion oztopoa eta muga. Koldo Zuazo

Ama, alabak bere kabuz ez ziola esango etsita, joan da behin mutilaren baserrira - mandaturen bat **aitzakia** zuela edo - eta harrapatu du mutila bakar antza eta hasi zaio alabaren alabantzatan: J.M. Olaizola "Txiliku"

Aita amarekin gogaituta egongo zen, eta nirekin ere bai, eta alde egiteko **aitzakiaren** bat beharko zuen igual. Joseba Sarrionandia

Eta Peñagarikanok berriz, jakin du **aitzakiak** aski topatzen arrazoiketa horren pisuari eusteko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aitzakia bat behar huen beraz mendekatzeko. Antton Olano

Egurrezko mendi errusiarrera igotzeko, esate baterako, ilara luzeegia zegoen, artean bero handia egiten zuen (beti behar da **aitzakiaren** bat), eta Rubenek eta biok txalupetara jo dugu. Patxi Zubizarreta

Zer gertatuko litzateke azala bukatutakoan, **aitzakiarik** ezean? Joxean Sagaztizabal

Egutxi agureak itxuraz haren eskua ukitzeko **aitzakia** bila galdetu zuen, ahurren artean hartu zion eskua, eta arinki astindu zuen. Ibon Uribarri

Gauez ehun aldiz, edozein **aitzakia** hartuta, kalera jaisten nintzen zein gelatan zeneukan argia piztuta ikusteko, hartara zure ikusezinezko presentzia ziurtasun handiagoz sentitzeko. Eduardo Matauko

Jimmy bezala... berak **aitzakia** hori ere ez zaukak... porrotetik porrotera, hasieratik deskalabrua. Lopez de Arana

Aitzakia bezala: "Ez dugu sekula behartu, berak aukeratu du bere bidea". Joseba Urteaga

Badakizu **aitzakia** bila dabilzkizula - Luisak ohetik, dena entzun ondoren. Jon Maia

2 (izenondoekin)

Aitzakia ona da, pentsatu dut, filologiakeriak ahazteko. Iñigo Aranbarri

Honela heldu zen Askatzaileen Kopako finala, non huts egindako penaltia izan baitzen **aitzakia** perfektua. Aritz Gorrotxategi

Aitzakia hutsal baten laguntzaz dantza klaseak egun pare batez ahantzi eta, goizean goiz, Baionarako TGV-a hartu dut Montparnassen. Patxi Zubizarreta

Eta aldaketa horiek, batzuetan, badirudi **aitzakia** nagusia direla munduko herritargoari baldintzak ezartzen dizkioten botere esferentzat, naturarekin eta pertsonekin aseezin eta errukigabe ageri den merkatu global bat asetzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zekor betizuaren kontu hori **aitzakia** hutsa izan da. Juan Garzia

3 (-en atzizkiaren eskuinean)

Nik, erretzen ez dudanez, ez dut hitzik egiten, nehoiz ez dut izaten solas baten **aitzakia** ematen duen hori, puru baten azkena. Koldo Izagirre

Basamortu jendetsu hartan ibili ondoren, egonean eta jolasean, bere etsipenaren **aitzakia** bila, lagunen bila ibili ondoren nahiz eta lagunak ukatu, minutu erdi beldurgarri eta trakets batean aurkitu eta galdu zuen benetako zoriona, gizonezkoen komunen eta lorezko erlojuaren ondoan. Koro Navarro

Haren **aitzakiaz** salatu eta gainera oldartuko zaizkigu; gu esklabo egin eta astoak beretzat hartuko dituzte. Jose Antonio Mujika

Bestetan, ez da egokitasun ezaren kausa ikusten; hainbat bitxikerik etimologiaren **aitzakia** ere ez dute. Isabel Arrigain

Saio askoren ondoren, bere etxean asteburu bat egiteko konbentzitu ninduen bezero batek, eta ikastaro baten **aitzakia** erabili nuen Honoréren aurrean, deus esan ez zezan. Joxan Elosegi

Sinkroniaren **aitzakian**, lan diakronikoetatik jakina zenari ez zaio ahal adina etekinik atera. Lourdes Oñederra

Eta ez zegoen eguraldiaren **aitzakiarik**: arratsaldea ederra zen. Hasier Etxeberria

Eskolan egon behar zuen baina, elurraren **aitzakiarekin**... Pablo Sastre

4 (-ko atzizkiaren eskuinean)

Eta orduan, ai ene, txoratzeko moduko pentsamendu-zurrunbiloak etortzen zitzaizkidan: ama, turkiarrarekin moztu eta gero, ni lana bilatzera eramateko **aitzakiatan** beste zerbait nahiko ote zukeen nigandik. Fernando Rey

Pentsatzen jarriz gero, ikaragarria dun: gaur egun herrialde boteretsuenak egundoko sarraskiak egiten ditizten Afganistanen edo Somalian bakea jartzeko **aitzakiarekin** eta gero gu gaitun gainera terroristak. Harkaitz Cano

Inor mintzo ez den bitartean horrela jarraitzeko **aitzakia** duelakoan dago. Pello Lizarralde

Egoera hartan mendi lerroa zeharkatzen hasteko arrazoi handiak behar ziren, duda-mudarako edo geroratzeko **aitzakiarik** ematen ez duten horietakoak. Karlos Zabala

Eta egun batzuen buruan zainduz gero, ez duela Gaiarrek bezala abesteko **aitzakiarik** izango. Hasier Etxeberria

Ur-tupina desagertu delako **aitzakiaz**, axolagabean baldekada bat ur botatzen duzu sutara, eta, egoskor, zure aldrebeskeria aitortu beharrean, besteei egozten diezu errua, baita neuri ere. Itziar Otegi

Paraje basotsua da, mendi artekoa, baina errepide inguruan ehunka langilek eta makinak dihardute birjintasun hori hondatzen, urtegi eskerga egiteko **aitzakiaz**. Jon Arretxe

Nire senarrak erraten duen bezala iganderoko mezarik ez bagenu guk ez genuke geure burua garbitzeko **aitzakiarik** izanen. Pello Lizarralde

Hori izan zen mendebaldeko lurraldeetan beren buruak ezkertiartzat zutenek liburua erdeinatzeko **aitzakia**. Felipe Juaristi

-2ren erroaren irrazionaltasuna frogatzea erraza zelako **aitzakian**, isilpean gorde zigun demostrazioa Ruche jaunak, bart arratsean. Jon Muñoz

Mezetarako **aitzakiarekin** azaltzen ziren igandero, soinua jotzera aitarekin. Koldo Izagirre

Elkarrekin afaldutakoan, lapurren buruzagia mandoak ikusteko **aitzakiarekin** irten zen. Patxi Zubizarreta

Azterketa erraz gaindituko duela, eta udara horretan oporretara joan ahal izango dela, koadrilakoekin, Santio bidea bizikletaz egitera, amak ez duela baimena ukatzeko **aitzakiarik** izango, ez dituela arratsaldeak liburuen aurrean pasatuko etxean entzerraturik. Iban Zaldua

Kolpatua adore-emaile, mintzakideak kontsolatzen entzuten nion neure buruari; neure bihurtzen nuen haien tristura, egoera goxatzen saiatuz, kontsolamendurako **aitzakiak** bilatuz. Joxan Elosegi

Castets-en gero, gasolina hartzeko **aitzakian**. Txillardegi

Komunera joateko **aitzakian**, ziegatik irten eta hitz batzuk egin ditut grisekin. Agurtzane Juanena

5 *aitzaki-maitzaki*

Protesi horrekin agertzen zaizkigu hitz bikoitz asko: aiko-maiko, **aitzaki-maitzaki**, akuilu-makuilu, angula-mangula, arteka-marteka, autu-mautu, auzi-mauzi, ele-mele, erdi-merdi, erran-merran, ika-mika, inguru-minguru, intziri-mintziri, iritzi-miritzi, irri eta mirri, isil-misil, itsu-mitsuka, itzuli-mitzuli, [...]. Iñaki Arranz

Ronald Reagan-en Gobernua **aitzaki-maitzaki** ibili zen orduan. Txema Ramirez de la Piscina

Salhaketaren irudiko, Langraizko espetxeko segurtasun arduraduna izandako Mariano Merino " **aitzaki-maitzaki** » dabil epailearen aurreko deklarazioetan. Berria - Harian

Batean, zenbait paperen **aitzaki-maitzakian** Townsvillera joatekoa zen goiz berean, Concettina, alaba gazteena gaixotu eta bertan behera utzi behar izan zituen Angelak lagunarenganako asmo guztiak. Xabier Montoia

Ez hasi **aitzaki-maitzaki** bila, ezjakintasuna dela, aurreiritziak direla, gaitasun-eza..., ez dago aitzakiarik. Karlos Zabala

Horrela, espirituzko lozorro eta epelkerian jausiko zarete, eta **aitzaki-maitzakiak** atereaz esango duzue: "Ezin dezakegu hasierako ausardi hura izan; hauek beste garai batzuk dira". Askoren artean

6 *aitzakia egin*

Unda I.ari pala apurtu zitzaion lanerdietan, baina ez da **aitzakia egin** zuen partida kaskarra egiteko. Berria - Kirola

Polizia bat haserretu, zinemara eramango zuela **aitzakia egin** eta zubitik behera ibaira bota zuen. Gotzon Garate

Orain ez dago zurezko aterik inon, hezetasunaren **aitzakia eginda** aluminiozkoak eta PVCko leiho-ateak ezarri dituzte etxe guztietan, min ematen dute begian hare-harriaren gaineko modernia merkeok. Koldo Izagirre

Gure semea ez genuen bataiatu; ez Aloña ez ni ez ginen sinestunak, eta geure uste eta iritziekin zintzo eta konsekuente jokatzen saiatzen ginen, ez guraso zahar fededunen **aitzakia egiten** duten hainbeste bikote hipokritaren moduan. Xabier Mendiguren Elizegi

Dantzatokietan, dantzari oso txarra zela **aitzakia eginez**, Onintze inbitatzen zuen dantzara. Gotzon Garate

Ez, ez nago neure onenean, baina hori ez da **aitzakia egin** dudana egiteko. Joxerra Garzia

7 *aitzakia eman*

Kolonbon herenegun gertatutako atentatuak Sri Lankako gobernuko sektore gogorrenei **aitzakia ematen** diete orain arte bultzatutako bake prozesua krikikatzeko. Berria - Mundua

Alderdi politiko batek, helburua delarik bizi politikoa arautzea, zer **aitzakia ematen** ahal luke, holako prozesu bati bizkar emateko?. Berria - Euskal Herria

Hasieratik nabarmendu dute Herri Batasuna izan zela bere garaian urtegiaren kontra nabarmendu zen alderdia, eta horrek, urtegiaren aldeko kanpaina ETAren kontrako kanpainatzat aurkezteko **aitzakia eman** die. Edurne Elizondo

Bulego pribatua beteta zegoela **aitzakia emanez**, Miepek gora eraman zuen Dussel jauna; apalategi birakaria zabaldu, eta begietan harridura zuela gure Atzeko Etxean sartu zen. Josu Zabaleta

Arauak dira, azken finean, eta jolaserako **aitzakia eman** ahal digute edo, helburuak aldatuta, sormena bideratzeko mekanismoa darabilte. Iñaki Arranz

Oroimenaren kapritxoak ostera nire aurrean jarri zuenean, burutazio hark ipuin bat idazteko **aitzakia ematen** zidala pentsatu nuen, liburuari falta zitzaion umore ukitua haren inguruan antola nezakeela. Bernardo Atxaga

Baina gauza honek badu bere akatsa, hauxe: borroka honen kondaira idatzi zuenak, une honetan bertan moztu eta zintzilik utzi zuela, **aitzakia emanez**, alegia, ez zuela ezer aurkitu paperetan Don Kijoteren ekintza hauetaz, berak idatzirik uzten dituan horietaz beste. Patxi Ezkiaga

Agustin ere ezin zuten harrapatu, hau ezkutatu ez eta presoak hainbat bider libratu zituen arren, eta borroka horretan jardun zuten harik eta euri zaparradak jokoa uzteko **aitzakia eman** zien arte. Joseba Sarrionandia

Eta, era berean, globalizazioaren mitoak indartu egiten du ideologia neoliberala, gizarte politika bazter uzteko **aitzakia ematen** baitio, lehiakortasunaren izenean. Iñaki Heras

Gero, logelak txukuntzeko **aitzakia emanik**, sukaldetik irten, eta eskaileretan gora alde egin zuen, eskailera-maila bakoitza kementsu oinkaturik. Anjel Lertxundi

8 *aitzakia hartu*

Baina hori baino gehiago ere bada: mundu osoan bizi dugunaren isla ikus dezakegu, alegia, etsaiaren kontrako gorroto eta beldurraren paranoia, eta hori **aitzakia hartuta** edozer gauza egiteko legitimitatea. Berria - Kultura

Hori **aitzakia hartuta** aurtengo binakako erremonte txapeldunei, Patxi Zeberio elduaindarrari eta Joseba Auzmendi segurarrari omenaldia egingo zaie. Berria - Kirola

Mila hildako baino gehiago eraginez, gehienak haurrak, emakumeak eta zaharrak, eta ezin konta ahalako kalte materialak sortuz, herria gerrilla maoistaren eskuetan zegoela **aitzakia harturik**. Jon Alonso

Parranda itzela, bidaia **aitzakia hartuta**, lagunok egindakoa, baina Idoia azaldu ez. Xabier Montoia

Hasiera batean, hamalau bikotek hitz emana zuten lehiaketarako, baina lana **aitzakia hartuta**, lau bakarrik bildu ziren Trinidadekora. Iñigo Aranbarri

Uztaritzeko merkatari familia aberats batekoa izaki, negozioak **aitzakia hartuta**, Baionara ihes egiten zuen ahal zuen guztietan. Elena Touyarou

Zer istorio liluragarri, zer pasadizo eder, zer jazoera bitxi ez zigukeen kontatuko hark, gure aitona karlisten ibili herrenak **aitzakia hartuta**! Koldo Izagirre

Era berean, urte aldaketa **aitzakia hartuta**, preso politiko saharrarei zuzendu zitzaien Abdelaziz, "askatasunaren eta independentziaren aldeko borroka zilegia jarraitzeko zina» berretsita. Berria - Mundua

"Iritzi publikoaren presioa egin nahi digute lan itunak guregan ez eze beste langile batzuengan ere eragina duela **aitzakia hartuta**. Berria - Ekonomia

9 *aitzakia jarri*

Berak nagikeria moduko baten **aitzakia jarri** zidan, partiturak idazteko orduan. Pako Aristi

Horren ordez, desenkusatu egin nintzaion auskalo zein **aitzakia jarriz**. Anjel Lertxundi

-Baina **aitzakia jarri** behar diat -esan zuen Émerrek. Agustin Otsoa

Urdai saltzaile ederrak, atsegin zintzo harengatik bere buruari **aitzakia jarri** nahian, horrela hegaztien sotoan jo zion ukabilkada berdintzen zuela zioen bere artean. Karlos Zabala

Zer **aitzakia jarriko** dio oraingoan? Iñaki Iñurrieta

Gerra prebentiboetan eta terrorismoaren aurkako borroketan AEBen estrategiak, ohi bezala, Hego Konoko eremu horretan Al Kaedako kideak atzeman izanaren **aitzakia jartzen** dute AEBek. Berria - Mundua

10 *aitzakiarik ez eduki*

Ez neukan **aitzakiarik**. Oskar Arana

Eta **aitzakiarik** ez zeukan argudio horren aurrean, men egin zuen Tomek, bururatu ez zitzaion kitzikagarria zen, benetako abenturek lehen unetik sortu behar dute ikara gozo hori. Koldo Izagirre

Bakarrik dago eskultura, inguruan ez du beste ezer, ez neukan ez kontzentratzeko **aitzakiarik**. Anjel Lertxundi

11 *aitzakiarik ez izan*

Ikuskari honek ez du **aitzakiarik**. Josu Zabaleta

Albertek egindako lanek ez zuten **aitzakiarik**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez dugu inongo **aitzakiarik**. Felipe Juaristi

Biharamunean bertan irtenaldi luze bat egingo dute; dagoeneko txango bat egina badute ere, inork ez du **aitzakiarik** izango Gamarrako igerilekuetara egun-pasa joateko. Xabier Mendiguren Elizegi

De Lancre Lapurditik lekuturik, Sarara itzultzeko trabarik ez **aitzakiarik** ez zuen gehiago. Aingeru Epaltza

>04AraO01¬55<- Ez dut **aitzakiarik**.

Arratoi tzarren hozkadak kenduta -zeruak daki nolako nazka diedan-, lan hark ez zuen **aitzakiarik** . Anjel Lertxundi

Gaur, ordea, ez dugu **aitzakiarik** izan. Xabier Montoia

12 *aitzakiarik gabe* *adlag*

Arrisku hori du aurtengo sasoiak, herenegun Renault taldeak **aitzakiarik gabe** lortu baitzuen bere historiako bigarren bat-bikoa. Berria - Kirola

Erabat eta **aitzakiarik gabe** bereganatua zuen duke handiaren uste ona. Karlos Zabala

Meritu handiagoa du zure diziplinak, **aitzakiarik gabe** onartzen duzulako atsegin ez duzun zerbait. Koldo Biguri

13 *aitzakiarik gabeko*

Aitzakiarik gabeko gidaria zen, baina nahiko gorabeheratsua gertatu zitzaigun hala ere bidaia. Rafa Egiguren

Ikusi ez duzuenok **aitzakiarik gabeko** zita duzue, eta seguru nago ikusita duten batzuek errepikatu egingo dutela. Berria - Kultura

Izan ere, **aitzakiarik gabeko** norgehiagoka da gaurkoa. Berria - Kirola

Aitzakiarik gabeko eguraldiak ere ez daki hiltzeko arrazoirik ematen. Iñaki Segurola

Nobedadea: **aitzakiarik gabeko** sexua; hau da, nire karrerari kalte baino on gehiago ekarri zion tentsiorik gabeko trenpe espirituala. Anjel Lertxundi

14 *aitzakiatzat hartu*

Dena den, jarraian, Espainiako eta Frantziako gobernuei zuzendu zien kritika, haiek, ETA **aitzakiatzat hartuta** , herritarren hitza onartu nahi ez dutela esanez. Berria - Euskal Herria

Luzaroan eta samurki negar egin ohi zuen berripaperetako pasadizoak **aitzakiatzat hartuta** : haur bahituak, emazte zapuztuak, gizaseme langabetuak, katu herratuak, txakur adoretsuak, edo zirenak zirelakoak. Mirentxu Larrañaga

Ez ba: nahiago dute oraingo fanatizanteek, hizkuntza **aitzakiatzat harturik** , Mapa Xuxena egin, osatu eta eraiki; ez da besterik, horretara biltzen da dena, zoko-usain autozentratu batera. Iñaki Segurola

Normalena elkarri diosal egin eta nork bere bidean aurrera jarraitzea izango zen, baina Lauaxeta, bide zuzenaren inguruko zalantzak **aitzakiatzat hartuta** , haiekin solasean lotu zen. Juan Luis Zabala

Segidan lanera joan eta nagusiari gezur bat sakatu, elurra **aitzakiatzat hartuz** ? Daniel Landart

Apaiza, Tabor mendiko kontakizuna **aitzakiatzat harturik** , jardunari jardun ari zen sermoian. Anjel Lertxundi

15 *aitzakiatzat jarri*

Bat-batean, jirafakumea amorratzen hasi da, aldameneko piztiatxoren bat apatxak zapaltzen ari zitzaiola **aitzakiatzat jarriz** . Xabier Olarra

Europako Arteztaraua (1999/31/CE) **"aitzakiatzat" jartzen** dutela nabarmendu zuen: "Bertan esaten da materia organikoa aurrez tratatu gabe ezin dela zabortegietara bota". Berria - Euskal Herria

Zer esan denborarik eza **aitzakiatzat jarri** eta eskuz idatzitako gutun luzeari erantzunez e-posta triste bat bidaltzen dutenei buruz. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahal izateko aitzakia (3); **aitzakia asmatu** (6); **aitzakia asmatu zuen** (3); **aitzakia baino** (17); **aitzakia baino ez** (17); **aitzakia baizik** (3); **aitzakia bat** (58); **aitzakia bat baino** (3); **aitzakia bat besterik** (5); **aitzakia bat gehiago** (3); **aitzakia bat izan** (3); **aitzakia batekin** (3); **aitzakia behar** (3); **aitzakia bera** (6); **aitzakia besterik** (22); **aitzakia besterik ez** (17); **aitzakia bezala** (9); **aitzakia bezala erabili** (3); **aitzakia bihurtu** (4); **aitzakia bihurtzen** (3); **aitzakia bila** (23); **aitzakia bilatzen** (3); **aitzakia da** (33); **aitzakia dela** (12); **aitzakia ederra** (10); **aitzakia edo** (5); **aitzakia egin** (4); **aitzakia eginda** (3); **aitzakia eginez** (3); **aitzakia egiten** (3); **aitzakia egokia** (4); **aitzakia eman** (8); **aitzakia emango** (3); **aitzakia ematen** (11); **aitzakia erabili** (6); **aitzakia erabiliz** (6); **aitzakia erabiltzen** (5); **aitzakia erabiltzen dute** (3); **aitzakia ere** (16); **aitzakia ere izan** (7); **aitzakia eta** (11); **aitzakia ez** (4); **aitzakia ezin** (3); **aitzakia gisa** (34); **aitzakia gisa erabili** (6); **aitzakia gutxi** (3); **aitzakia gutxiago** (3); **aitzakia guztiak** (5); **aitzakia handirik** (3); **aitzakia hartuta** (22); **aitzakia hori** (16); **aitzakia horrekin** (15); **aitzakia hutsa** (29); **aitzakia hutsa da** (4); **aitzakia hutsa izan** (3); **aitzakia hutsa zen** (3); **aitzakia izan** (39); **aitzakia izan zen** (7); **aitzakia izango** (21); **aitzakia izaten** (7); **aitzakia jarri** (6); **aitzakia merke** (3); **aitzakia merkea** (4); **aitzakia moduan** (14); **aitzakia moduan erabiltzen** (3); **aitzakia modura** (3); **aitzakia nagusia** (4); **aitzakia nahikoa** (7); **aitzakia on** (4); **aitzakia ona** (14); **aitzakia perfektua** (3); **aitzakia polita** (5); **aitzakia polita izan** (3); **aitzakia zela** (3); **aitzakia zen** (7); **aitzakia zerbait** (3); **aitzakia zuen** (5); **aitzakia zuten** (3); **armak aitzakia** (3); **ateratzeko aitzakia** (3); **baina aitzakia** (8); **bat aitzakia** (3); **baten aitzakia** (7); **batzuetan aitzakia** (3); **beste aitzakia** (5); **beste aitzakia bat** (4); **beste edozein aitzakia** (3); **beti aitzakia** (4); **betiko aitzakia** (4); **da aitzakia** (28); **da aitzakia izango** (4); **dela aitzakia** (5); **dira aitzakia** (8); **dira aitzakia izango** (6); **direla aitzakia** (3); **duela aitzakia** (3); **duen aitzakia** (3); **duten aitzakia** (5); **duten aitzakia da** (3); **edo aitzakia** (11); **edozein aitzakia** (35); **edozein aitzakia dela** (4); **egiteko aitzakia** (24); **egiteko aitzakia ere** (3); **emateko aitzakia** (4); **ere aitzakia** (3); **eta aitzakia** (33); **eta aitzakia horrekin** (5); **eta edozein aitzakia** (3); **ez aitzakia** (3); **ez da aitzakia** (18); **ez dira aitzakia** (7); **ez egiteko aitzakia** (3); **ez zen aitzakia** (6); **ezin da aitzakia** (5); **ezkutatzeko aitzakia** (3); **gogoeta egiteko aitzakia** (3); **hartzeko aitzakia** (3); **hau aitzakia** (3); **honen aitzakia** (3); **hori aitzakia** (13); **hori aitzakia hartuta** (4); **horretarako aitzakia** (5); **itzultzeko aitzakia** (3); **izan zen aitzakia** (3); **izateko aitzakia** (3); **jarraitzeko aitzakia** (4); **jarraitzeko aitzakia baino** (3); **jartzeko aitzakia** (5); **lasaitzeko aitzakia** (3); **nion aitzakia** (3); **nuen aitzakia** (4); **sartzeko aitzakia** (3); **zein aitzakia** (3); **zela aitzakia** (5); **zen aitzakia** (13); **zer aitzakia** (5); **zuen aitzakia** (9); **zuten aitzakia** (3)

aitzakiak asmatu (5); **aitzakiak ateratzen** (3); **aitzakiak baino** (8); **aitzakiak baino ez** (8); **aitzakiak besterik** (5); **aitzakiak besterik ez** (5); **aitzakiak bilatzen** (6); **aitzakiak dira** (5); **aitzakiak direla** (4); **aitzakiak eta** (5); **aitzakiak ez** (5); **aitzakiak jartzen** (11); **aitzakiak jartzen hasi** (5); **aitzakiak ziren** (3); **aitzakian edo** (3); **aitzakian ez** (4); **aitzakiarekin eta** (3); **aitzakiaren bat** (49); **aitzakiaren bat asmatu** (3); **aitzakiaren bat asmatzen** (3); **aitzakiaren bat eman** (3); **aitzakiaren batekin** (6); **aitzakiaren baten** (7); **aitzakiaren baten bila** (7); **aitzakiaren beharrik** (3); **aitzakiaren bila** (3); **aurkako borrokaren aitzakian** (4); **aurkitzen zuen aitzakiaren** (3); **babesteko aitzakian** (3); **baina aitzakiak** (3); **bakearen aitzakiarekin** (3); **baten aitzakian** (18); **batzuen aitzakian** (3); **beste aitzakiaren** (3); **beste aitzakiaren bat** (3); **betiko aitzakiak** (3); **borrokaren aitzakian** (6); **du aitzakiaren** (4); **du aitzakiaren bat** (3); **duzu aitzakiaren** (3); **duzu aitzakiaren bat** (3); **edo aitzakiak** (3); **edozein aitzakiarekin** (14); **edozein aitzakiaren** (4); **edozer aitzakiarekin** (3); **egiteko aitzakian** (6); **egiteko aitzakiarekin** (3); **egunaren aitzakian** (3); **era guztietako aitzakiak** (3); **erosteko aitzakian** (3); **eta aitzakiak** (14); **eta aitzakiaren** (3); **gerraren aitzakiapean** (3); **guztietako aitzakiak** (4); **hartzeko aitzakian** (3); **horiek aitzakiak** (4); **horren aitzakian** (11); **segurtasunaren aitzakian** (3); **zelako aitzakian** (3); **zuen aitzakiaren** (6); **zuen aitzakiaren bat** (4)

aitzakiarik behar (3); **aitzakiarik eduki** (4); **aitzakiarik eduki ez** (4); **aitzakiarik ematen** (4); **aitzakiarik euskal** (3); **aitzakiarik ez** (51); **aitzakiarik ez dago** (4); **aitzakiarik ez dagoela** (13); **aitzakiarik ez du** (4); **aitzakiarik ez dute** (4); **aitzakiarik ez zuen** (3); **aitzakiarik gabe** (30); **aitzakiarik gabea** (3); **aitzakiarik gabeko** (8); **aitzakiarik izan** (18); **aitzakiarik izan ez** (7); **aitzakiarik izango** (7); **aitzakiarik jar** (3); **aitzakiarik jarri** (15); **aitzakiarik jarri gabe** (5); **aitzakiarik onartu** (5); **aitzakiarik txikiena** (6); **atzeratzeko aitzakiarik** (3); **aurrean aitzakiarik** (6); **aurrean aitzakiarik eduki** (4); **batere aitzakiarik** (3); **dago aitzakiarik** (22); **dagoela aitzakiarik** (3); **daukat aitzakiarik** (4); **du aitzakiarik** (11); **duela aitzakiarik** (4); **dut aitzakiarik** (9); **dute aitzakiarik** (8); **edo aitzakiarik** (3); **egiteko aitzakiarik** (4); **eratzeko aitzakiarik** (3); **eratzeko aitzakiarik ez** (3); **ere aitzakiarik** (4); **eta aitzakiarik** (11); **eta aitzakiarik gabe** (3); **ez dago aitzakiarik** (22); **ez dagoela aitzakiarik** (3); **ez daukat aitzakiarik** (4); **ez du aitzakiarik** (9); **ez duela aitzakiarik** (4); **ez dut aitzakiarik** (9); **ez dute aitzakiarik** (8); **ez zen aitzakiarik** (3); **ez zion aitzakiarik** (4); **ez zuen aitzakiarik** (8); **ez zuten aitzakiarik** (7); **inolako aitzakiarik** (15); **inolako aitzakiarik ez** (3); **jainkoaren aurrean aitzakiarik** (4); **piloten aitzakiarik** (3); **piloten aitzakiarik ez** (3); **zegoen aitzakiarik** (3); **zen aitzakiarik** (3); **zion aitzakiarik** (4); **zion aitzakiarik jarri** (3); **zuen aitzakiarik** (9); **zuten aitzakiarik** (8); **zuten aitzakiarik izan** (3); **zuten aitzakiarik jarri** (3)

---

aitzakiabide *(corpusean **aitzakibide** soilik) iz* aitzakia erabiltzeko bidea

Kanpoan egoteak postalen **aitzakibidea** eskaintzen du. Lourdes Oñederra

---

aitzakiagabe *iz*

Analista horrek maratz-maratz zerrendatu zituen emaitza hain nabarmenkiro susmagarri baina formalki **aitzakiagabe** haiek. Juan Garzia

---

aitzakiaka *adlag* aitzakiak jarriz.

Baina, gutxien espero genuenean, B-12 bainaka eta **aitzakiaka** hasi zitzaigun. Jon Alonso

Aitzakiaka hasi, ezin duela, ikusten badute ez dakit zer, hau eta hura, baina Marta bere mimo eta trikimailu guztiekin saiatzen da eta azkenean Matxainek mahai gaineko agendan begiratu eta eman egiten dio zenbakia. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala ere, ez natzaizu **aitzakiaka** hasiko eta ez daukat zuri barkamena eskatzeko asmorik. Patxi Zubizarreta

---

aitzakiapean *adlag* aitzakiaz, aitzakiarekin.

Simonik podiuma lortzeko, Hontxar eta Popovitx atzeratzeko **aitzakiapean** jo zuen erasoa, beharbada, edo etapa garaipena lortzen saiatzeko, baina bere jokaera ez zen

zuzena izan. Berria - Kirola

Azkuek ez zuen argiro zehaztu eta mugatu bere eredua, eta jarraitzaileek edozer gauza sartu zuten gipuzkera "osotuaren" barruan, betiere euskalki hori "osatzeko" **aitzakiapean**. Koldo Zuazo

Badirudi joera horrek ez daukala dagoeneko indarrik, baina aldian-aldian beti da baten bat gure artean, euskara modernizatu, zeregin teknikoetara egokitu eta inguruko hizkuntzekin homologatu beharraren **aitzakiapean**, euskararen egitura zaharkitutzat jo eta goitik behera eraberritzen ahalegintzen dena. Koldo Zuazo

Horra zergatik debekatu zuen Jaungoikoak horrelako egintza, behin burutuz gero inongo zuzentasun **aitzakiapean** zuritu ezin zitekeen egintza. Imanol Unzurrunzaga

Igitai eta mailuaren **aitzakiapean** zientzialariak, margolariak, pentsalariak... desagertuz joan ziren. Fernando Morillo

---

aitzakiatsu *izond* aitzakiaz betea.

Beste aukeerarik ez zeukalako bizi zela Sethe 124an etsipen ezindu, **aitzakiatsuan**; ez zeukanez senarrik, semerik eta amaginarrebarik, Sethek eta bere alaba geldoak hantxe bizi beharra zeukaten bakar-bakarrik, nola edo hala. Anton Garikano

---

aitzakiatu, aitzakia(tu), aitzakiatzen du *ad* aitzakia gisa esan.

Baina ofizialak eta soldaduak besterik ez dago eta -**aitzakiatu** zion Afifi andereak, are harrituago. Patxi Zubizarreta

-Nola nahi duzu deabruaren umeak aitaren tentazioari uko egitea? - **aitzakiatu** zion, ahotsa firfiran. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitzakiatu zion** (9)

---

aitzakiatxo *iz adkor* aitzakia xumea.

Gauzarik normalena da urte asko daramatzaten bikoteetan elkarrenganako **aitzakiatxoak** egotea, erreparoak. Pako Aristi

---

aitzakiazale *izond* aitzakien zalea dena.

Eta ikasten dute, **aitzakiazale** ez direnek, behintzat. Arantxa Iturbe

---

aitzakipean ik **aitzakiapean**.

---

aitzi 1 *adlag* aurka.

Eguzkiaren **aitzi** joanez gero, berriz, denborari buru eginez, atzera gindoazke, "egunak" irabaziz! Jose Angel Irigaray

Herbehereetan Filiperen agintearen **aitzi** borrokan ari ei ziren fedearen eta erregeren aurka altxatuak. Edorta Jimenez

Plan horri Alderdi Komunistak bortizki egin zion aurka, Juntaren **aitzi** armetan altxatuz. Edorta Jimenez

Pirinioetako ibar hertsiak zaintzen dituztelakotz luteranoen **aitzi**. Piarres Xarriton

Iduri duenaren **aitzi**, solasa pausatua da, oharkabeko telepatia edo halako suertez. Jose Angel Irigaray

Heben aldiz beren etorkiaren **aitzi** ari zaizgü, baita nik uste beren etorkizün eta geroaren kontre. Herria

Gauari **aitzi**, eta Herioari **aitzi**. Joxe Austin Arrieta

2 (-i deklinabide atzizkiaren eskuinean)

Aronekin, historiako etsai guztiei **aitzi** arrisku txikiarekin garaipen handia erraz lortzeko hori bezalakorik ez baitago. Joxe Azurmendi

Dikotomia faltsu horrek, bakoitza bestearen arerio bailitzan, aukeratzeko atakan jartzen du bat (euskalduna) besteari (unibertsaltasunari) **aitzi**, edo alderantziz. Askoren artean

---

aitzika *adlag* aurka.

Guretako, LABeko lagünentako, ez da düdarik, lantegikal, herrikal antolatü biltzar orokorrek emaiten düen dinamikari lehentarzüna eta indarra eman behar zaio, "bakoitxa bere lantegian" soiltarzün horren hausteko, "bakoitxak bere sindikatean" bedera alde, ideia horren üzteko, poderearen büratzen **aitzika** alkarrekilako indar baten eraikitzeko. Herria

---

aitziko *izlag* aurkakoa.

Beti **aitzikoa** desiragarriagoa, nonbait: kaosa izan-eta ordena nahi. Jose Angel Irigaray

Erresuma hanitxek sartü behar üken züen Nazismaren eta Fazismaren **aitziko** güdükan, eta denen beharra izan zen garaitzeko. Herria

---

aitzin 1 iz ipar aurrea, aurrealdea.

Dermitek pilota on guti **aitzin** hartan bere abileziaren erakusteko, hain ziren indarrean pilota guziak. Herria

Eta Xalak ere xixtatu duela **aitzin** hartan, eta gibeleko zolarat berdin. Herria

Hala da-eta norbait dela orain Sorhuet **aitzin** hartan. Herria

Aitzin hortan balio du beti ezkerrak, trenkatzeko, baina gibeletik taulatzea eta luzatzea, besterik da. Herria

Lau pilotariak gogotik ari, Muscarditz ainitz lotzen **aitzin** hartan, Kurutcharry ere trenpu onean, tanka xuxena eta defentsa bat hain segurra. Herria

Iduri dute elgarrendako eginak Larrecheak eta Oçafrainek **aitzin** gibeletan eta horra bost tantoren makurra 38-33, ondarrean halaxet bururatzeko. Herria

· Batzuk zuzen, besteak gibelekotz **aitzin**. Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Liburu elebiduna, Jean Haritschelhar-en **aitzin**-solasarekin. Herria

Aitzin-partida, gazteena, 4etan hasiko. Herria

Gorenaz ere auziaren **aitzin**-argitzeak has ditazke laster, omen. Herria

Iragan primaderaz geroz departamenduko posta bulegoen zuzendari berri denIdierjaunak onartu du **aitzin**-urrats hori emaitea. Herria

Aitzin partida: Latchere / Ithurralde. Bi partida horiek ere **aitzin**-partida banarekin asteazken ebiakoitzetan. Herria

Aitzin -partida bat jokatuko dute buruz buruka Errecart lekondarrak eta Idiart makearrak. Herria

Aitzin partidan, hola joana zuten lehen finalerdia gazte hauk. Herria

250 bertset dauzka pastoralak, **aitzin** eta azken pheredikuak barne, halaber hamabi kantuak. Herria

3 baino lehen.

Aintzin eman izenak hor berean edo goizean jitean 9 orenak **aitzin**. Herria

2500 urte Jesus **aitzin**, iberiarren eremua Languedoc-eko Herault ibaian hasten zen eta Mediterraneoa segituz hegoaldera, gaurko, Andaluziaraino heltzen. Herria

Omenaldia **aitzin**, Euskaltzaleen Biltzarrak bere urteko biltzar nagusia eginen du toki hortan berean, aratsaldeko 2.30etan. Herria

Akordio ofizialak urte burua **aitzin** izenpetua izan behar luke. Herria

Bi hilabete KORRIKA **aitzin** antolatzen diren ekitaldi batzuk. Herria

Interesatuak direnek2005eko abenduaren 17a **aitzin** motibapen gutun bat CV bat helarazi behar dituzte Seaskara. Herria

Izenak eman uztailaren 13a **aitzin** 05 59 37 62 99ra. Herria

Beraz, astelehenean, Luhuson, partida hau jokatu da museko azken finala **aitzin**. Herria

Bigarren saria izan da Larresoroko Leire Mounolentzat eta honek ukan ditu bi sartze beti AB-BO rugbi matxa **aitzin** den bestarentzat. Herria

Zu **aitzin** helduek han zaituzte. Herria

Bazkal **aitzin** kontseiluak eskaini zintzur bustitzea. Herria

Arratsaldean, pilota partidak **aitzin**, artean eta ondotik. Herria

4 (aditzaren era burutuaren eskuinean)

Aratseko 8:30etan hasiko da lehen saioa afaldu **aitzin**, eta afalondoan eginen dute saio nagusia. Herria

Enpresa komiteak xehetasun gehiago eskatu du xede horri baietz edo ezetz erran **aitzin**. Herria

Berantegi izan **aitzin**, iratzartuko ote gara? Herria

Alabainan, Euskaldunak jin **aitzin**, 1587 aldean, Amerindianoek jadanik baliatzen zuten azken bi mila urteetan, ihizirako eta komertzio gune gisa. Herria

Dauphiné libéré: Hau da Frantziako itzulia baino lehen egiten den lasterkada, holako entsegu bezala ikusteko zertan den bakoitza, lasterkada famatua hasi **aitzin**. Herria

Beharko du haatik hilabete batez pausuan egon bozetako kanpainara bete betean berriz sartu **aitzin**. Herria

Auzapezak ihardetsi dio gisa oroz patinategian ez dela obrarik hasiko beharrezkoak diren diru laguntzak segurtatu **aitzin**. Herria

Zapatero lehen ministroak erran duenez legealdia bururatu **aitzin** espero du ETA-k armak utziko dituela. Herria

Kontrola zehatzak egiten dira, bai hedatu **aitzin**, bai hedapenaren denboran. Herria

2003 urtean Capio holdinak erosi **aitzin**, 540 000 euro eskugain ateraiak ditu. Herria

5 ***aitzin-gibel*** *iz* **1** aurrera eta atzerako mugimendua.

Ez da hemen erratekoa zenbat **aitzin-gibel** egin nituen eta zenbatetan desbideratu behar izan nuen, arriskutik urrundu beharrez. Aingeru Epaltza

6 *pl irud* alde guztiak.

Zeren liburu handi lodi batean skribatu behar izaiten bainituen don Venancioren negozioaren goiti-beheiti guztiak eta **aitzin-gibelak**. Joan Mari Irigoien

Pedro Huiziren kontuekin hasi baino lehen, osabarekin izan nuen auziaren **aitzin-gibelak** azaldu beharko nizkizuke lehenik. Joan Mari Irigoien

Nahiz eta Platonen ideien edo Aristotelesen teoria hilemorfikoaren **aitzin-gibelak** buruz nekizkien orduko. Joan Mari Irigoien

Iduri dute elgarrendako eginak Larrecheak eta Oçafrainek **aitzin gibeletan** eta horra bost tantoren makurra 38-33, ondarrean halaxet bururatzeko. Herria

Bi oreneko solasaldia generaman jada, urte aunitzetan luzeena, eta ez hain juxtu ere toki eta kinka horretara ekarri gintuen aferaren **aitzin-gibelez**. Aingeru Epaltza

7 (adizlagun gisa)

Bata aurreraka, eta bestea atzeraka, **aitzin-gibel** begira, urtezahar-urteberri sinbolizatuko balu bezala. Pello Zabala

Ikusten nuen orduan koloreak gorri, sudur punta luzea ubel, tripa kanpoan, zilkoa agerian, **aitzin-gibel** balantzaka, kikara eskuetan, kafeari lau sukre mokor aurtikitzen, espantuz, hilezkorra bailitzan. Itxaro Borda

8 ***aitzin-gibel behatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Bigarrena: egiaz eta egiaren gainean ere, ez da, ez, berehala, hutsalean, premia gabe eta **aitzin-gibel behatu** gabe egin behar juramentua. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 ***aitzin-gibeleko***

Ezker-eskuin eta **aitzin-gibeleko** jokaldietan baloia zuenaren alboan aritu ziren. Berria - Kirola

10 ***aitzin-gibelez***

Bi oreneko solasaldia generaman jada, urte aunitzetan luzeena, eta ez hain juxtu ere toki eta kinka horretara ekarri gintuen aferaren **aitzin-gibelez**. Aingeru Epaltza

11 ***aitzin-gibelka*** *adlag* aitzin-gibel.

Ez nintzen kikildu; aitzitik, eskuko hatzekin galtzak gerritik **aitzin-gibelka** inarrosten nituela, ihardetsi nion: [...]. Joan Mari Irigoien

12 *aitzin solas* ik **aitzinsolas**.

13 ***aitzineko*** *izlag* aurrekoa.

Izaki hark begiratuko du **aitzineko** izaera, bere forma aldatu gabe. Piarres Xarriton

Aitzineko Proposizioan, gauza singularren propietate komun horietarik erakutsi dugunaz geroz ez dugula ezagutza guztiz ezegokia baizik izaten ahal gure Gorputzaren iraupenazProposizio horren demonstrazioa **aitzineko** Demonstrazioaren bide beretik egiten da. Piarres Xarriton

Zeren eta substantzia gorpuztuna zati ahal baledi haren zatiak zinez bereizteko gisan, zergatik ez litzateke zatiki bat ezeztatzen ahal, beste zatikiek **aitzineko** lotura berak elkarrekin begira litzaketelarik? Piarres Xarriton

Edurnek **aitzineko** egunean eman zidan bere ordutegien berri. Aingeru Epaltza

Jakaz den bezainbatean, **aitzineko** gauean erabilitako bera hautatu behar izan nuen, bertze itxurosoagorik ezean. Aingeru Epaltza

Eskuak ere, **aitzineko** orduetan pausatu gabeak, hil hotz zeutzan orain, ahurrak mahai gainean eratxekirik. Aingeru Epaltza

Aitzineko ateari eskua itsatsi eta hau baizik ez zen ezpainetaratu nire barne unatutik. Aingeru Epaltza

Aspaldian apostolu sainduek eta haien ondokoek erabakia dute eta gaurdaino Eliza Saindu Katolikoak **aitzineko** erabaki haien arabera sinesten du, ez dela zilegi Erromako Apezpikuaren baimenik gabe ez kontziliorik biltzea, ez apezpikurik kondenatzea. Piarres Xarriton

14 ***aitzinerat*** aurrera.

Beti elgarren bete joan dira 29 taraino, doi-doia **aitzinerat** pasatuz garaztarra noiztenka, 23-19, 26-22. Herria

Txalupari biek zutik egiten zuten arraun, gibeletik **aitzinerat**, erramu banarekin, mugimendu motel, single eta dotorez. Koldo Izagirre

Hemen haatik **aitzinerat** eskapatu zaizkie laster baigorriarrak: 13-2, 18-3, 27-7 eta 33-9. Herria

Bizian **aitzinerat** egiteko, esperantza hats bat da, argi bat, bidea bixtaz ikus ahala ikusteko. Herria

Mendekuaren edo gorrotoaren zama antzuak alde batera utzi eta begirada garbiarekin **aitzinerat** jo. Filipe Bidart

Fagoaga-tarrek beti kudeatu dutelakotz biziki xintxoki, beti berdin kartsu, beti **aitzinerat** eginez, Ez, ez dugu geroko segurantzarik, beti gara periletan, eta gutxien uste dugunean, geure gogarenik gaudenean eta **aitzinerat** ere anitz gauzaren egiteko gogo hartzen dugunean, atrapatzen gaitu heriotzak. Herria

Herriko etxearen **aitzinerat** heltzean, ene harritzea! Janbattitt Dirassar

Eta horra non, goiz batez, ene **aitzinerat** heldu zaidan beste neska bat, oraino Maider hura baino pollitagoa naski, xingola xuri bat buruaren gainean paratua. Filipe Bidart

Agorrilaren 8an, goiz aldera, lau zaintzale ene gelan sartzen dira eta nolanahizka komandoaren aitzindariaren **aitzinerat** basaki eremaiten nute. Michel Oronoz

Honek manatu ziola jar zedila laur-ointka eta eraman zezala bizkar gainean Alexandro Handiaren **aitzinerat**. Joan Mari Irigoien

Bururatu zitzaidan, azkenik, ezen segada bat prestatu eta segadan hartu eta atrapatu behar zintudala, Jainkoaren tribunalen **aitzinerat** eramaiteko. Joan Mari Irigoien

15 ***aitzinez aitzin*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Laborategiko nesken **aitzinez aitzin**, lotsak eta nahasturak hondoraturik sentitzen gara hirurok. ETC-literatura, saiakera

Hain jota gelditu zen, non, telefonoa katigatu eta Raissarengana joan beharrean -mutilak eskolan zeuden-, estudioko besaulkian eserita jarraitu baitzuen, begiak **aitzinez aitzin** zuen horma zurian iltzatuta. ETC-literatura, saiakera

Barrenetxea etxea (Zugarramurdi) Barrenetxea etxea: Etxeberria etxearen **aitzinez aitzin** dago. ETC-entziklopedia

Anihilazioa: **aitzinez aitzin** ukan dezagun Gaxenen begirada galdua; **aitzinez aitzin** ukan dezagun Gernikan akabatutako haurraren begirada galdua. ETC-prentsa

16 ***ate aitzin***

Zenbat egon ote nintzen **ate aitzin** hartan, eskaler hegiari itzatua bezala? Janbattitt Dirassar

Ate aitzinean gelditua, eztarria garbitu eta atea jo nuen. Alberto Ladron Arana

Zenbat egon ote nintzen **ate aitzin** hartan, eskaler hegiari itzatua bezala? Janbattitt Dirassar

Ate aitzinean gelditua, eztarria garbitu eta atea jo nuen. Alberto Ladron Arana

Lehoien pasabidea, eskailerak, burdinazko atea, kartierreko ibilbidea, zaintzaleak erdian, zaintzalea ene zeldako **ate aitzinean**, ezin sar, levez les bras! To, berritz? C'est bon, allez-y! Filipe Bidart

Lehergailua **ate aitzinean** ezarria zen. Berria - Euskal Herria

La Carioca deitzen den fonda xumearen etxekoandrearen irribarre goxoak, atarian sartzera nindoala, nago ez didan erakustera eman ene zai zegoela, haren **ate aitzinean** pasatua bainintzen, zaldiaren behortegirainoko azken urratsen kexu goxo berarekin. Piarres Aintziart

17 ***azken-aitzineko*** *izond* azken-aurrekoa.

Sakelatik gogoaren kontra atera, eta paltoko paparrean ipinirik, aise kezkagarriagoa iduritu zitzaion hurrengo atalaren, hots **azken aitzineko** zatiaren irakurtzen hasi zen. Elena Touyarou

Urratsa luzatuz, abiadura zalutuz, **azken aitzineko** herrixkari hurbilduko naiz bai, ondarrean. Piarres Aintziart

18 *bazkal aitzin* ik **bazkalaitzin**.

19 ***begitarte aitzin*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Zonbeitek ezartzen zuten eskuak **begitarte aitzinean**, bertzek bihotz gainean baina, hor zeuden denak, tente. ETC-literatura, saiakera

20 ***ez aitzin ez gibel*** ez aurrera ez atzera.

Baina mementu hartan ez aitzin ez **gibel** geratu zen apeza, burua hutsik. Joan Mari Irigoien

21 ***gibelekoz aitzin*** atzekoz aurrera.

Sotana bera zinta **gibelekotz** aintzin erdi trebeska ezarria. Herria

Batzuk zuzen, besteak **gibelekotz** aitzin. Herria

Hots, **gibelekoz** aintzin itzuli zaizko holako gauzak, atzoko aldean. Herria

Eskuak ortzira zuzenduz, otoizlari eta eske, besoak **gibelekoz** aitzin kulunkatuz. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

a aitzin (5); **abiatu aitzin** (28); **agertu aitzin** (7); **aitzin aitzinean** (5); **aitzin behar** (5); **aitzin bere** (4); **aitzin egin** (8); **aitzin eguneko** (6); **aitzin ere** (7); **aitzin eta** (20); **aitzin etapa** (38); **aitzin etapa eta** (6); **aitzin etapa irabazteko** (4); **aitzin etapak** (4); **aitzin etapan** (13); **aitzin etaparekin** (7); **aitzin ez** (16); **aitzin ez gibel** (4); **aitzin gaueko** (5); **aitzin gibel** (4); **aitzin gibelak** (6); **aitzin hartan** (18); **aitzin hortan** (5); **aitzin izan** (5); **aitzin motibapen** (7); **aitzin motibapen gutun** (7); **aitzin multzo** (18); **aitzin multzo indartsua** (5); **aitzin multzoa** (10); **aitzin multzoan** (9); **aitzin multzoko** (10); **aitzin multzoko lehen** (4); **aitzin partida** (16); **aitzin partidak** (4); **aitzin partidan** (6); **aitzin seaskara** (4); **aitzin seaskara motibapen** (4); **aitzin solas** (9); **aitzin solasa** (15); **aitzin solasean** (5); **amaitu aitzin** (8); **argitu aitzin** (5); **atera aitzin** (13); **bazkal aitzin** (4); **bete aitzin** (8); **bukatu aitzin** (15); **bururatu aitzin** (6); **da aitzin** (5); **deusi lotu aitzin** (4); **du aitzin** (4); **egin aitzin** (39); **eguberri aitzin** (4); **eguerdi aitzin** (6); **ekin aitzin** (14); **eman aitzin** (15); **erabaki aitzin** (4); **eraman aitzin** (8); **erantzun aitzin** (6); **ere aitzin** (5); **erran aitzin** (5); **eta aitzin** (11); **etorri aitzin** (13); **ez aitzin** (6); **ez aitzin ez** (4); **ezarri aitzin** (5); **finala aitzin** (6); **galdu aitzin** (8); **gerla aitzin** (4); **gertatu aitzin** (4); **handik aitzin** (35); **harrapatu aitzin** (4); **hartu aitzin** (18); **hasi aitzin** (101); **heldu aitzin** (47); **hemendik aitzin** (15); **hemendik joan aitzin** (4); **herrira heldu aitzin** (4); **hil aitzin** (16); **hirian sartu aitzin** (4); **hori egin aitzin** (6); **hortik aitzin** (4); **igan aitzin** (4); **ikusi aitzin** (5); **indarrean sartu aitzin** (4); **ireki aitzin** (6); **iritsi aitzin** (10); **italiarat joan aitzin** (4); **itxi aitzin** (6); **itzuli aitzin** (17); **izan aitzin** (21); **jalgi aitzin** (5); **jarri aitzin** (8); **jauregiko aitzin** (4); **jin aitzin** (10); **jo aitzin** (8); **joan aitzin** (68); **jokatu aitzin** (14); **kilometroko aitzin** (13); **kilometroko aitzin etapa** (6); **kilometroko aitzin etaparekin** (6); **lekutu aitzin** (5); **lokartu aitzin** (7); **lotu aitzin** (14); **mintzatu aitzin** (4); **nagusia aitzin** (4); **onartu aitzin** (7); **partida hasi aitzin** (9); **partida jokatu aitzin** (4); **partitu aitzin** (11); **piztu aitzin** (4); **romandiako tourreko aitzin** (4); **saioa hasi aitzin** (5); **sartu aitzin** (59); **segitu aitzin** (4); **sortu aitzin** (9); **tourreko aitzin** (5); **uda aitzin** (6); **urrundu aitzin** (4); **urte bete aitzin** (4); **urtea bukatu aitzin** (5); **utzi aitzin** (10); **zendu aitzin** (4); **zuen aitzin** (11)

---

aitzina *(orobat **aintzina**; eta **aitzinat** g.er.)* **1** *adlag batez ere ipar* aurrera.

Urrats bat **aitzina** eta bi gibelerat. Filipe Bidart

Bego horretan eta goazen **aitzina** aipatu nahi dudan hirugarren puntura. Piarres Xarriton

Trena badoa **aitzina**, maiz geldituz. Marzel Etxehandi

Baina **aitzina** joan baino lehen, atsegin nuke Zati honetako 10. Proposizioa zehazkiago esplikatzea. Piarres Xarriton

Baina gaua **aitzina** doa eta laugarren bisitaria oraino entzutekoa dute. Michel Oronoz

Aitzina joanez, horra Iturburua eta Hunttoinea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bakarrik behako bat eman nahi dut, erran zuen bere golkorako, eta **aitzina** joan zen. Elena Touyarou

Nere buruaz trufatu ondoan xutitu naiz eta jo **aitzina**, eguzkia ateratzen ikusteko itxaropenarekin. Piarres Aintziart

Ximurrak **aitzina** egin zuen ziztu bizian. Aingeru Epaltza

Alabaina, gure txalupak **aitzina** egiten zuen. Koldo Izagirre

Listua irentsi eta neuk ere **aitzina** egin nuen. Alberto Ladron Arana

Aintzina doa xapelgoa partida hunekin, Hazparnen igande 25 ean, 4 orenetan. Herria

Bet-betan bihotza taupadaka zitzaidan hasi, ez ordea beldurrez; eta nire karrozak **aitzina** egin zezan, bertze ideiarik ez nerabilan gogoan. Jon Muñoz

Bittorrek **aitzina** jarraitu zuen beste lau penaturekin portu aldera, isurgirantz, soldadu baten begipean. Koldo Izagirre

Aitzina segituz, heltzen gara Boloki izena zuen etxera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beste hamar bat urrats egin nuen oraino **aitzina** eta gero deliberatu behar nuela gibelerat itzuli. Janbattitt Dirassar

Goazen beti **aitzina**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Adinean **aitzina** egin ahalean korapilatsuagoak eta nahasiagoak bilakatzen garela uste dute zenbaitek. Aingeru Epaltza

Urteak badoaz **aitzina**... Piarres-ek, 1944an, agertarazten du Euskal gramatika eder bat, Uztaritzen delarik erakasle aspaldian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Burua hazkatu zuen eta **aitzina** jarraiki: [...]. Elena Touyarou

Eta bazihoan **aitzina** solasaldia, Garaziko euskalki goxoan, beste erosle bat etorri arte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Etxe hori Orreagako kolegiatarena izan zen 1276etik **aitzina**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

CDan, 1993. urtetik kaleratutako kanta guztien bilduma egin dute eta DVDan, berriz, 1996tik **aitzinako** bideoklip eta iragarkiak. Berria - Euskal Herria

Biko ilaran Don Arturo buru zutela errepidean **aitzina** ibaiertzetik betiko moduan. Koldo Izagirre

"Château-Pignon" edo "Castel Peñón" toki aipatua eta historikoa dugu aurkitzen "Karrosa uzkali"-ren gunetik **aitzina** segituz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Urte hartarik **aitzina**, ordaintzen edo pagatzen zituzten eliza honetako gastuak, lurrak irauli arte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aintzina behar dela segitu bixtan da, trabak trabatei. Herria

Beharrik denbora **aitzina** badoa, anitz nahigabe eta beharrordu estaltzen dituena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Erratekoa zen komandanturrarekin ere tratu onak bazituela, bestela ez zuen bere afera neholaz **aitzina** eramaten ahalko. Itxaro Borda

Eusko Armadako kide gehienak kartzelan daude eta pariatzekoa da hemendik **aitzina**, ATE erakunde terroristak bilduko dituela herriaren iraun energia iturriak oro. Itxaro Borda

Hitzartu dugu hemendik **aitzina** soilik atea irekitzera etorriko dela, eta haren gelara joanen garela. Jon Muñoz

Geroago, Tomsketik **aitzina**, edo Krasnoiarsk pasata, mendebaldeko Siberiaren hiri garrantzitsuren batera iristerakoan, ikusiko zuen zer komeni zen. Karlos Zabala

Beti higiduran, ezker eskuin, **aitzina**, gibelerat, bet-betan! Jose Angel Irigaray

Gero, zaldien ipurmasailetan esku-zarta haserreak jorik, sekulako garrasi batez ezproinatu zituen zaldiak-: Axa, zaldiak! **Aitzina**! **Aitzina**! Anjel Lertxundi

2 *aitzina egin*

Oraingoan, gazteluzainak manatuta ez du gotorlekuko atetik **aitzina egin**. Aingeru Epaltza

Aldiz, **aitzina egiteko** balio duen filosofia maite diat nik, numeroa oinarri duena eta ez hitza. Joan Mari Irigoien

Adostasun giroan **aitzina egin** daitekeelako froga da kontsultaren aldeko dinamika berri hori. Berria - Harian

Bordeleko dei gortera joko dute, **aitzina egiteko** asmoz, prefeta edo suprefetaren beldurrik gabe. Herria

Kasurik nabarmendu zuen bileraren ondoren espero duela Manmohan Singh Indiako lehen ministro berriaren gobernuak prozesuan **aitzina egitea**. Berria - Mundua

Bet-betan bihotza taupadaka zitzaidan hasi, ez ordea beldurrez; eta nire karrozak **aitzina egin** zezan, bertze ideiarik ez nerabilan gogoan. Jon Muñoz

Tarteka baitirudi, Heletako besta berrietan bezala gure dantza-jauziek egiten dutela, urrats bat **aitzina egin** orduko, beste bi urrats gibelera. Piarres Xarriton

Ondoko mendi tontor bateko xendratik **aitzina eginda**, erromatarren tenplu antzeko bat omen zegoen, eta jakin-minez nago aztarna galduren bat ote dagoen. Javi Cillero

Begiak altxatu zituzten sartzen ikusi zutelarik, baina partida **aitzina egin** zuten. Elena Touyarou

Errepublika iritsi zenean, berriz, lehengo joerak **aitzina egin** zuen, eta PNVkoak gehiago izan ziren karlistak baino, alde handirik gabe halere. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta gero, nik hiruzpalau urrats **aitzina egin** orduko, ez zena xutitu! Janbattitt Dirassar

Listua irentsi eta neuk ere **aitzina egin** nuen. Alberto Ladron Arana

Eta, ai, nola besarkatu zituen argi izpi haiek banan-banan, eta nola gorde zituen bere oroimenean, biharamunean **aitzina egin** ahal izateko! Eta egun batean, Soniari emandako hitza betetzen zuela, etxeko guraizeak zorroztu eta haren etxera joan zen. Joan Mari Irigoien

Aitzina egin du korridorean poliki. Koldo Izagirre

Gizarteak **aitzina egin** badu, ez da izan soilik arauak eta legeak antolatzen jakin duelako, horiek behera botatzen jakin duelako ere izan da, batez ere. Hasier Etxeberria

Baina, **aitzina eginen** dut afektuekin, zer onura eta zer kalte dakarten gizakientzat, ohartaraziz. Piarres Xarriton

3 *aitzina eraman*

Gure Irratiakbere diru biltze kanpaina **aitzina darama**, datorren urtean Uztaritzeko egoitza berrietara joaiteko (185.000 euroko gastuak). Herria

Halaz Otsabiden edonor beste mundura eskapatzen zenean, fede trahola guztien **aitzina eramateko** prest zegoen, arima bekatorosak zerura hupa zitezen bidean sobera denborarik galdu gabe alainan. Itxaro Borda

Baina zer balio du historia nahasi honen **aitzina eramaiteak**? Ezen badirudi gai honetan ezin dela aurkitu elizaren irakaspen finkorik: kristau, apez, apezpiku edo aita saindu bakoitzak bere teologia edo etika propioa balu bezala. Piarres Xarriton

Beti pentsatu dugu politika, hizki handiz, politikarien lana zela eta guri, hizki txikidun politika egitea zegokigula, hau da, gutariko bakoitzak, bere borroka egunerokoaren **aitzina eramatea**. Ana Urkiza

Baina lan horieri esker Luzaideko postari edo pietunak beti **aitzina eraman** du bere lana. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gure gaztaka **aitzina eramateko** beste modu bat baldin bada nire kartzelaldi berri hau, nolaz esan dezaket liburu batean ixteak, letrazko ziegan isolatzeak, ez dakarrela onurarik? Koldo Izagirre

Misione hartan ere bi kaputxino daude, eta haietarik bat ene lagun mamia da: aita Humberto, bihotz oneko indiar batzuekin lan egiten ari dena, eta zuek bezalako jendearen beharrean dagoena, bere asmoen **aitzina eramaiteko**. Joan Mari Irigoien

Jokalari on asko dago, baina ez dago dirurik egituraketa sendo bat **aitzina eramateko**. Berria - Kirola

Oraingo exekutiboa ez zen gai proiektu handiak **aitzina eramateko**. Berria - Euskal Herria

4 *aitzina hartu*

Hau da politika berria, etsaia kondenatzen dela aitzinetik eta **aitzina hartzen** diozula. Herria

Ondorioz, hauteskundeen ondotik, Marcos ohartu zen oposizio demokratikoak **aitzina hartu** zuela emaitzetan. Ramuntxo Etxeberri

Miarritzek sailkatzeko aukera du oraindik, Staderi irabazi eta 'average'-an **aitzina hartu** ondoan. Berria - Kirola

Edo bizitzak tratu gordinagoa eta gogorragoa eman zion Pedrori, edo Pedrok berak deliberatu zuen ezen bizkor bizi beharra zuela, denborari **aitzina harturik**, bizitzari. Joan Mari Irigoien

Hala nola mundu mailan Tiger Woods golf jokolariak Schumacher eta Beckhami **aitzina hartzen** die eta Frantzia baizik ez aipatzeko anitz sos sakelaratzen dute Zidane eta Henry futbolariek, doidoia Olivier Panis beribil gidaria baino gehiago. Berria - Kultura

5 *handik aitzina*

Hameka urtez Urruñan berean jokatu ziren, gero hamabiez Saran, 1854etik 1876era, **handik aitzina** Eskual Herriko leku desberdinetan ospatu ziren holako egunak, Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban. Michel Oronoz

Handik aitzina, gauzak aldatu ziren, eskolan berriz mintzatzen ahal izan ginen nahi genuen bezala eta gainera, ezin sinetsia!, hizkuntzaren erakusten hasi ziren. Aurelia Arkotxa

Handik aitzina, bertze autore batzuen aipuak egiten zenizkidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Handik aitzina, tarteka elkar gurutzatzean karrikan, agurtu baino ez, baina begiek behintzat elkar topatzen zuten. Jose Angel Irigaray

Handik aitzina, goiti egin ahalean urruntzen, beti ere urruntzen baizik ez dut ikusi, zenbat eta gorago hainbat eta urrunago eta gizenago. Aingeru Epaltza

Lehenik San Francisco aitzinean joan da 24 arte, 24etan berdindu dira, eta **handik aitzina** biziki ardura berdinduz joan dira, batzu bertzen bete ziren, eta denak ere gogotik ari elgarri presentik egin gabe. Herria

Handik aitzina Stade hasi zen nagusitzen, eta paristarrak 0-14 aitzinatu ziren oren erdirako. Berria - Kirola

1916 an sortua zen Etcheverry apeza, Azkaraten, baina uhartiar bilakatzeko geroxago ikasle gazte zen denboran, eta semenarioan **handik aitzina**. Herria

Egun hartan irabazi zuen aitatxik bere izengoitia: **Handik aitzina**, Migel Antsa gabe, Migel Mailu izanen zen toki orotan eta jende ororendako. Aingeru Epaltza

Baina ez uste **handik aitzinako** bidea, honenbertzez, erraza izan zenik. Joan Mari Irigoien

Handik **aitzinakoak**, badakizkizu, jaun Joanes: egun batean, jaun Ricardo Menesesekin ezkondu nintzen, bizi izan nintzen harekin sei urtetan seme-alabarik izan gabe, alargundu nintzen. Joan Mari Irigoien

6 *hemendik aitzina*

Beraz, **hemendik aitzina**, jandarma bat etorriko zaizu egunero eta beharko diozu eman mezu bat neretzat, behar diren xehetasun guziekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

49. Euskaraz jatorrizkoan; hala **dira hemendik** aitzina letra etzanez eta halamoduzko ortografiaz emandako pasarteak ere. Koldo Izagirre

Arrantzako untzi berrientzat gero eta nekeago ukaiten dira alabainan diru laguntzak eta funtsean oraino gehiago xuhurtuko omen dira **hemendik aitzina**. Herria

Deszentralisazioari buruz jokatu dira **hemendik aitzina**. Herria

Hemendik aitzina Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko gurasoek hautatzen ahalko dute zer deitura eman beren haurrari. Berria - Euskal Herria

Orain arte jaialdiko zuzendari artistikoa Thierry Malandain izan da, baina **hemendik aitzina** ez da gehiago hala izanen. Berria - Kultura

Hemendik aitzina ez naiz numero hori baizik izanen. Marzel Etxehandi

K2ren hegian gaude, 4950 metrotan, **hemendik aitzina** kanpamendu nagusi izanen dugun honetan. Xabier Montoia

Astebete lehenago, lasaigarria zitzaidakeen **hemendik aitzina** nire bizi puskak inork bilduko ez zituela jakitea, ez paperera, ez garaien araberako bertze euskarrietara.

Aingeru Epaltza

Hemendik aitzina, neronek idatzitako mutuaren hitz hauez osatuko dut bilduma berria. Hasier Etxeberria

Horrengatik naiz-eta ene buruaz ahalge! ez bainaiz gai zuk **hemendik aitzina** maitatzeko, ez baitut holako amodiorik merexi! Janbattitt Dirassar

-Hemendik aitzina, hi izanen haiz erresumaren ezpata zorrotza Nafarroako alderdi horretan. Aingeru Epaltza

Hemendik aitzina axuri haragi zurpailaren produzitzen hastea gomendatzen zien gizonak artzainei, merkatuaren eskaerara makurtzea, bospasei asteren buruan kabala marrakarien saltzea, hots. Itxaro Borda

-Nagok Paxkal, ez dugunetz denek **hemendik aitzina** burua sobera berotuko eta azkenean galduko. Daniel Landart

Hemendik aitzina badakit irakurleek zalantzak izanen dituztela eta bidean gelditzeko anitz oztopo gogoratuko zaizkiela. Piarres Xarriton

7 *jo aitzina*

Nere buruaz trufatu ondoan xutitu naiz eta **jo aitzina**, eguzkia ateratzen ikusteko itxaropenarekin. Piarres Aintziart

Eta **jo aitzina**, egun guzian besta ederra eginez. Herria

8 *jo aitzina!*

Beraz **jo aitzina**! . Herria

Ta **jo aitzina**! Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitzina abia (3); **aitzina abia ditake** (3); **aitzina ari** (5); **aitzina badoa** (3); **aitzina begira** (9); **aitzina begiratu** (4); **aitzina beha** (3); **aitzina bere** (3); **aitzina beti** (3); **aitzina darama** (3); **aitzina doa** (18); **aitzina doala** (3); **aitzina doan** (3); **aitzina doatzi** (3); **aitzina doatzila** (3); **aitzina egin** (88); **aitzina egin ahala** (4); **aitzina egin ahalean** (3); **aitzina egin baino** (3); **aitzina egin behar** (8); **aitzina egin du** (7); **aitzina egin nahi** (8); **aitzina egin nuen** (7); **aitzina egin zuen** (10); **aitzina eginda** (3); **aitzina eginen** (11); **aitzina eginen dut** (3); **aitzina egingo** (4); **aitzina egitea** (4); **aitzina egiteko** (49); **aitzina egiteko eta** (3); **aitzina egiten** (24); **aitzina egiten duen** (3); **aitzina egiten zuela** (4); **aitzina ene** (3); **aitzina eramaiteko** (6); **aitzina eraman** (4); **aitzina eramateko** (5); **aitzina eramaten** (3); **aitzina ere** (16); **aitzina eremaiteko** (6); **aitzina eta** (28); **aitzina eta aitzina** (10); **aitzina euskal** (3); **aitzina ez** (9); **aitzina gindoazen** (4); **aitzina goaz** (5); **aitzina gure** (4); **aitzina hartu** (5); **aitzina jarrai** (3); **aitzina jarraiki** (5); **aitzina jarraitu** (12); **aitzina jarraitu zuen** (5); **aitzina jarraituko** (7); **aitzina jarraituko du** (3); **aitzina jarraitzen** (9); **aitzina jarraitzen du** (5); **aitzina jaunak** (3); **aitzina jo** (7); **aitzina jo behar** (3); **aitzina joaiteko** (6); **aitzina joan** (23); **aitzina joan ahala** (5); **aitzina joan ziren** (3); **aitzina joanen** (3); **aitzina joanez** (3); **aitzina jotzeko** (3); **aitzina kurri** (3); **aitzina nahi** (4); **aitzina s** (4); **aitzina segi** (5); **aitzina segitu** (24); **aitzina segitu behar** (5); **aitzina segitu du** (3); **aitzina segitu nuen** (3); **aitzina segitu zuen** (4); **aitzina segituko** (7); **aitzina segituz** (3); **aitzina segitzeko** (13); **aitzina segitzen** (9); **aitzina segitzen du** (3); **aitzina zihoala** (6); **aitzina zihoan** (4); **aitzina zoazte** (3); **artean aitzina** (3); **badoa aitzina** (4); **baina aitzina** (9); **baina aitzina egiteko** (3); **baionak aitzina** (3); **baionak aitzina egin** (3); **banoa aitzina** (4); **bat aitzina** (12); **bat aitzina egin** (3); **batzuk aitzina** (3); **behar dugu aitzina** (3); **beti aitzina** (24); **bidean aitzina** (10); **bidetik aitzina** (3); **bihartik aitzina** (3); **da aitzina** (10); **da hemendik aitzina** (4); **denbora aitzina** (3); **dio aitzina** (4); **dira hemendik aitzina** (5); **doa aitzina** (5); **du aitzina** (8); **dugu aitzina** (7); **dugula aitzina** (3); **dut aitzina** (5); **dute aitzina** (7); **dute hemendik aitzina** (3); **egin aitzina** (3); **eguna aitzina** (4); **eguna aitzina joan** (3); **erditarik aitzina** (3); **ere aitzina** (17); **eta aitzina** (63); **eta aitzina egin** (8); **eta aitzina egiteko** (5); **eta aitzina segitu** (4); **eta bidean aitzina** (5); **eta erditarik aitzina** (3); **eta handik aitzina** (4); **eta hemendik aitzina** (5); **eta hortik aitzina** (3); **eta jo aitzina** (5); **eta segi aitzina** (6); **etatik aitzina** (3); **etik aitzina** (4); **ezen aitzina** (4); **garazi aitzina** (3); **gaurtik aitzina** (4); **goazen aitzina** (12); **guk aitzina** (5); **handik aitzina** (120); **handik aitzina eta** (4); **hemendik aitzina** (111); **hemendik aitzina ere** (9); **hemendik aitzina ez** (4); **honetan aitzina** (3); **honetatik aitzina** (7); **hortik aitzina** (16); **hura aitzina** (3); **jo aitzina** (13); **kanpaina aitzina** (3); **lehenetik aitzina** (8); **lehenetik aitzina abia** (3); **mendetik aitzina** (7); **mundua aitzina** (3); **nuen aitzina** (4); **orenetarik aitzina** (3); **ostegun honetatik aitzina** (4); **segi aitzina** (16); **urrats aitzina** (5); **urrats aitzina egin** (3); **urrats bat aitzina** (11); **urriaren lehenetik aitzina** (5); **urteak aitzina** (5); **urtetarik aitzina** (3); **zen aitzina** (3); **zen handik aitzina** (3); **zuen aitzina** (9)

aitzinago ere (6); **aitzinako ene** (3); **baino aitzinago** (3); **bat aitzinago** (3); **eta aitzinago** (8); **eta aitzinago ere** (3); **handik aitzinako** (5); **handik aitzinako ene** (3); **handik aitzinakoak** (3)

hemendik aitzinat (3)

---

aitzinagotu, aitzinagotzen *(corpusean **aintzinagotu** soilik)* du *ad ipar* aurreragotu.

Laugarrena Gazteriaren politika bat **aintzinagotu** nahi dena. Herria

Bateko dena besteko, ez da hemen ere, gure herri **aintzinagotuetan** geldirik egona gure anderea: xehetasunetan sartu gabe, errana izan zaigu nolako emaztea izana den eta nolako denboretan: enplegu sortzaile eta enpresaburu bera, preseski afera buruzagitzetan oraino emazte guti zen denboretan. Herria

---

aitzinaka *adlag* aurreraka.

Honen gorpua **aitzinaka** erori zen, ahuspez, lurrera. Elena Touyarou

Ez zion errana akabatzeko betarik eman, zeren aitak, iragarri bezala, albo baterat egin, zangoari bira eragin, eta sekulako ostikoa eman baitzion Xalbadorri, zeinak, esku-ukondoen gainean **aitzinaka** erori ondoren, oinazturak harturik bezala zutitu eta ihes egin baitzuen, lasterka, txakur minduaren antzera. Joan Mari Irigoien

---

aitzinaketa *iz* aurreratzea. ik **aurrerakada**.

Informatikak ekarri duen **aitzinaketa** ez dago neurtzerik. Pello Zabala

---

aitzinaketari *iz* aurrerazalea.

Bitartean, ordea, Salamancan, krisi erlijiosoak pitzatua, filosofia positibistatik kontrariora konbertitu den bezala (existentzialismorantz, formula labur batekin esateko), Unamuno etorkizunetik ere iraganera konbertitu da, historia progresista eta **aitzinaketariaren** apar eta zirimoletatik intrahistoria isilgeldira, utopia historiko guztietatik salbaziozko esentzialismo katoliko eta espainolera. Joxe Azurmendi

---

aitzinako ik **aitzineko**; **antzinako**.

---

aitzinakor *(corpusean **aintzinakor** soilik) izond ipar* aurrerakoia.

Kultura bizi eta **aintzinakorra** nahi du gure gizartearentzat eta bere obretan erakusten du ikusi nahi duenari. Herria

Egitarau ederra prestatua dute Bizkaitarrek, besteak beste lantegi **aintzinakor** batzuen bisitaldiak bereziki elektronika sailean. Herria

---

aitzinalde *(orobat **aintzinalde**)* **1** *iz* aurrealdea.

Jarlekuaren azpiko kofretik kaskoa atera zuen, berria hura ere, osotara hertsia eta **aitzinalde** ilunekoa, jabea ez ezagutzeko maneran. Aingeru Epaltza

Miarritzen, kasinoaren **aintzinaldeko** plazan. Herria

Ondotik, oroit-harri bat finkatua izanen da Charles-Michel de Salaberry horren aitatxi sortu zen etxearen **aintzinaldean**. Herria

Etxe guztiak teilatu gorrikoak ziren eta **aitzinalde** argikoak, txuriak edo hori zurbilak. Alberto Ladron Arana

Elizaren **aitzinaldeak** frontoi zabal baten sinpletasuna dauka. Piarres Aintziart

Josu Larizen kontrako epaiketa dela-eta, Larizen aldeko elkartasun batzordeak elkartasun ekimena antolatu du gaurko, goizeko hamarretan, epaitegien **aitzinaldean**. Berria - Euskal Herria

Dendaren **aitzinaldean**, beti bezala, Koran liburua ipinia zuten mahai sakratu baten gainean. Karlos Zabala

Friso joniar bat oroitarazten zuen apaindura hanpatuegia **aitzinaldean**, bertze deus nabarmenik ez zuen. Aingeru Epaltza

Hamalau arraildura orotarat, bederatzi **aintzinaldean**, bost gibelaldean. Herria

Eta jauregiaren **aitzinaldeko** planotik harat, bertzalde, bi lur eremu errektangular bereiz zitezkeen, elkarri zerraizkionak eta jauregiaren ataria osatzen zutenak. Joan Mari Irigoien

Kirkuken betiere, Abbas Mohammad al-Attar unibertsitateko zuzendariaren etxe **aitzinaldea** andeatu eta haren autoa suntsitu zituzten lehergailuak botata. Berria - Mundua

2 *(corpusean **aintzinalde** soilik)* abantaila.

Gero, gutiz bazen ere, beti **aintzinaldea** irabazleek, 3-4 ponduz, eta gehienean: 18-13 eta 22-17. Herria

Biriatuarrak orain duen trenpuarekin eta urketarra harekin, **aintzinaldea** zuten fermuki, 15-13, eta 18-15 taraino. Herria

Hauk dira preseski **aintzinaldea** laster hartu dutenak eta bururaino atxiki hozka haundiegian ez bazen ere. Herria

Horra nola diren 22 tan ados, eta **aintzinaldea** ere hartzen dutela jazko xapeldunek, 28-26. Herria

3 *aitzinaldea hartu*

Hastea elgarren bete, iduri ukan dute gero gaina hartzera zoatzila berriz ere Baigorriko irabazle heiek, bereziki partida erditan sei tanto lerroan eginez **aitzinaldea hartu** dutelarik. Herria

Lehen partida huntan ilusione egin dute galtzale hauk **aitzinaldea hartuz** funski, 11-10, 19-12 eta 27-19, besteak ez baitziren oraino berotuak eta hortaz baliatuz. Herria

Kurutcharry, jazko xapelduna, indarrean zen eta **aitzinaldea hartzen** zuen beti, 16-11, 21-14 baina laparra bezala lotzen den harek ze lasterrak eta punpa-sareak, eta eskuin xoko hura. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitzinaldea hartu** (5); **eta aitzinaldea** (3)

---

aitzinamendu **1** *iz* aurrerapena, aurrerabidea. ik **progreso**.

Diputatu batzuek salatu zuten *patois* deitu basa hizkuntzek eragozten zutela **aitzinamendua** eta fagoratzen "fanatismoa". Piarres Xarriton

Horixe defendatzen ari gara: askatasuna, demokrazia, zibilizazioa eta **aitzinamendua**. Xabier Montoia

Heiek ez dute beren herria maite, heiek beren moltsa zuten maite eta heiek beren orgulua eta beren **aitzinamendua** zuten maite. Menane Oxandabaratz

Hizkuntzalaritzak mende honetan egin dituen **aitzinamenduen** ondotik, eta haien ondorioz, beste zientzia batzuk ere baliatu dira haren emaitzez. Piarres Xarriton

Ternezia apur batez hurbildu nintzen teknikaren **aitzinamenduak** hain bidegabeki zokoratutako tramankulura Aingeru Epaltza

Joseph Louis Lagrange (1749-1827), matematikari frantsesa, mekanika teorikoan eta analitikoan **aitzinamendu** handiak ekarri zituena. Koldo Izagirre

Aitzinamendu ohargarriak egin dira iragan mende erdian, hala nola, Nazio Batuen Erakundeak onartu dituelarik 1966ko bi Hitzarmenak, edo aurten 2003ko uztailean lanean hasiko delarik Nazioarteko Gorte Penala. Piarres Xarriton

Gure hiriak egin du **aitzinamendu** azken hogei urteetan. Aingeru Epaltza

Mendeak eta mendeak gerlan ari izanik ere, sekulako **aitzinamenduak** gerla tekniketan eskuraturik ere, gizona ez zen sekulan hein horretako itsuskeriaraino heldu izan. Michel Oronoz

2 aurrerakina.

Hemen behean ere Jainkoak askatzen ditu atsekabe guztitik, eta betierean izango duten gozamenaren **aitzinamendu** bat hartzen dute. Joan Mari Lekuona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitzinamendu bat** (7); **aitzinamendu handia** (4)

---

aitzinapauso *iz* aurrerapausoa.

Aitzinapauso llabur baina aldi berean seguruak. Aingeru Epaltza

---

aitzinapen *iz* aurrerapena.

Bi besoetatik oratuz, hirugarrenez geldiarazten ari zen nire **aitzinapenak**. Aingeru Epaltza

Espazioan eta denboran emanak diren determinazio hutsei, tankerari eta handitasunari dagokienez, agerpenen **aitzinapenak** deitu ahal izan diegu, zeren hauek a priori errepresentatzen baitute beti a posteriori esperientzian eman daitekeena. Ibon Uribarri

Hautemapenaren **aitzinapenak** beti bere baitan zerbait harrigarria du gogoeta transzendentalera ohitu eta zuhurra bihurtu den izadiaren ikertzailearentzat. Ibon Uribarri

Etxeberrik, laketurik, bertzeei baino denbora eta atentzio gehiago eskainiz erantzun zien nire **aitzinapenei**. Aingeru Epaltza

Ezagutza enpirikoari dagokiona a priori ezagutzea eta determinatzea ahalbidetzen duen ezagutza orori **aitzinapen** dei dakioke. Ibon Uribarri

Izkiria iezadazu bederen orain arte baino sarriago, eta eman zure **aitzinapenen** berri. Jon Muñoz

Hemen, beraz, ezin dugu pentsatu axiometan, ezta **aitzinapenetan** ere, baizik eta hautemapen bat beste hautemapen batekin denbora-hartuemanean egonik ematen bazaigu (beste hau indeterminatua izan arren), orduan ezingo dugu a priori esan ea zein den beste hautemapen hori, ezta zein handitasun duen ere. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hautemapenaren aitzinapenak** (4)

---

aitzinara *adlag ipar* aldez aurretik.

Larraineko trinketean bazkari bat gozatzeko ahala badateke bena, hortarako, txartelak **aitzinara** erreserbatü behar dira. Herria

35 ontzi erosiak izan dira, arraunlariak estatuko hoberenen erronkan kokatzen dira, kirolari guztien beharrei ihardesteko badira 12 trebalari diplomatuak eta berrogei arraunlari **aitzinara** ateratzen direnak. Herria

---

aitzinaratu ik **aitzineratu**.

---

aitzinarazi, aitzinaraz(i), aitzinarazten *(orobat **aintzinarazi**; eta **ainzinarazi** g.er.)* **1** du *ad* aurrerarazi.

Siriako inperioak lehorretiko merkataritza hainbeste hedatzen zuen bitartean, Egiptok ez zuen asko **aitzinarazi** itsas merkataritza. Iñaki Iñurrieta

Bestela, berriz, ozeano gehiengotarrean ez badu bere nortasun eta euskalduntasuna galdu eta urtu nahi, bere legearen arabera nahi izaten badu kultura (beti unibertsala noski!) bereganatu eta **aitzinarazi**, materialki marjinazioko lagunarte kultural txiroagoan kausituko da. Joxe Azurmendi

Bi bilkura egin dira zonbait aste barne afera horren **aintzinarazteko**. Herria

Nahimena ez da aski, dirua behar da ere holako lan baten **aintzinarazteko**. Herria

Bagoietatik salbaiki jautsarazi zituzten, besotik harturik lurrera botaz, azote eta makil ukaldika **aitzinaraziz**, ihizi arriskutsuak balira bezala. Eneko Bidegain

Denen zerbitzatzea orokorki eta HAZPARNE **aitzinaraztea** da gure helburua. Herria

Yachvilik berak **aitzinarazi** zuen lehen aldiz Miarritze, zigor kolpea gauzatuta. Berria - Kirola

Lan hori **aitzinarazteko**, Aholku Batzorde bat eraiki da, hiru sailtako jendez osaturik. Herria

Une batez, bere aho itxiaren indarraz **aitzinarazten** duela ontzidi osoa iruditu zaio: matrailezurra apur bat ezkerretara mugituz gero, hiru ontziak ere zentzu berean mugituko direla itsasoan. Harkaitz Cano

Elgarrekin eritasuna gibelarazi, bizia **aintzinarazi**. Herria

Horien emaitzari esker baita pilota biziarazten eta **aintzinarazten**. Herria

Ezen errepublikaren orga **aitzinarazten** zuten jende horiek guztiek, premia-premian, geriza eta aterpe izanen zuten prest, legoa batera, iruinsemearen ardurapeko murruen atzean. Aingeru Epaltza

Edo zure karro astuna lauhazka erraldoian **aitzinarazten** duen zaldi-bikotea?. Itxaro Borda

Sariarena alderantziz ere irakurtzen ahal zen bistan dena: astoa **aitzinarazten** zuen zaldalea izan zitekeen. Itxaro Borda

Condillac, Diderot, etab.ekin ados egon behar ote dugu, beste hizkuntza guztien aldean perfektuena frantsesari deritzotenean, arrazoimenaren eta progresoaren hizkuntza, zientzia eta libertateak munduan **aitzinarazten** dituena, etab., [...]?. Joxe Azurmendi

2

Orduan Arrazoimenak, maiuskulaz idatziak, oraingo erlatibismo mengelak gabe, garbi eta sendo zekien zer dagoen ongi eta zer gaizki (berak oinarritzen baitzuen!), zer den Egia -letra handikoa- eta zer Zuzena (bere produktuak zituen!), nola **aitzinarazten** den historia (bere eskuetan zeuzkan progresoaren uhalak!), nola fabrikatzen den Zuzenbideko Estatuan Askatasuna, Berdintasuna eta Anaitasuna. Joxe Azurmendi

2 *(corpusean **aintzinarazi** soilik)* bultzatu, aurrera eginarazi.

Eskola publikoko euskal erakasleak Ikas-ekin eskuz-esku ari direlarik, harrigarri da nola Ikas-Bi-ko buruzagiak bertze bide batetik badoazin, "sasi-proiektu" bat **aintzinaraziz**, Ikas-en kalteetan. Herria

---

aitzinarazle *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* aitzinatzea eragiten duena.

Historiari ez zaio India axola, baizik Ingalaterraren aurrerapena, hau baita gizadiaren **aitzinarazlea.** ETC-literatura, saiakera

Hiritarraren kanpoaldeko biziera diskretuena, lege guztien konplitzaileena, agindupeko eta otzanena, ongizate sozialaren **aitzinarazleena**, dena alferrik izango da zakur inkisitorial bizitza pribatuenaren eta intentzio sekretuenen usnatzailearentzat. ETC-literatura, saiakera

---

aitzinasmo *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)* *iz* aldez aurreko asmoa.

Aitzinasmoak gainditu eta lehenagoko bide antzuari muzin egin nion. ETC-prentsa

Lantxo horien mamia feminismoa, ezkontzak, ohiturak eta jendearen **aitzinasmoak** zirela dio Sanchez Ostizek. ETC-prentsa

Idazleak, ordea, azaldu du ez duela **aitzinasmorik** izan horretarako. ETC-prentsa

Bidearen aldaketa ekar dezake nortasun agiria modu berrian ulertzeak; **aitzinasmoak**, diskurtso memorizatuak, proiektuak justifikatzeko historiaren erabilera baztertzaileak gaindituz, modu konplexu, anbibalente, malguan publizitatuz adierazpen sinbolikoa, dilema okerren porrota dakar. ETC-prentsa

---

aitzinat *adlag* aurrera.

Jendea gibelerat eta **aitzinat** ibilki. Hasier Etxeberria

Tentagarriak, zatozte eneganat eta ez iragan **aitzinat**, zeren ostatu bila bainabilkizue, eta zeren ez baitago zuen besoak baino ostatu hoberik. Joan Mari Irigoien

Gizartea zenbat eta aurreratuago, jendea bereganatzen hasi da gauzak ezin direla nolanahi egin, eta ez dela batere ona gizartearentzat aurrera egitea, **aitzinat** egitearen kostuak kontuan izan gabe. Pello Salaburu

Hemendik **aitzinat** segitzeko, aurretik gaztigatzen dizut, gogoa behar duzu, eta hizkuntza kontuekin kezka izan, bestela bigarren mailako kontuak idurituko baitzaizkizu beharbada hemen esango ditudanak. Pello Salaburu

---

aitzinatu, aitzina(tu), aitzinatzen *(orobat **aintzinatu**; eta **ainzinatu** g.er.)* **1** da/du *ad* aurreratu; aurrera egin.

Altxatzera egin nik, baina anaia **aitzinatu**. Aingeru Epaltza

Bera aldiz, buru on eta izpiritu xorrotxekoa, gazterik **aitzinatu** zen bere bidean. Herria

Bide horretan ez naiz sobera **aitzinatu**. Jon Muñoz

Aitzinatu naiz hari laguntza ematera; baina hark, nire esku, haren malkoez bustiak heldurik, batzuetan nire belaunak ere besarkaturik, erran du:_"Bai, zu izanen zara, zu izanen zara nire salbatzailea! Jon Muñoz

Arrabete ere ez nauk **aitzinatuko**. Aingeru Epaltza

Botere laikoa aldiz, naturazkoa baita, molde naturalean, tipitik eta eskasetik abiaturik, erran daiteke **aitzinatuko** dela, etxe soiletik etxe multzora, eranskin honen hondarrean aipatuko ditudan arrazoiengatik. Piarres Xarriton

Handik aitzina Stade hasi zen nagusitzen, eta paristarrak 0-14 **aitzinatu** ziren oren erdirako. Berria - Kirola

Aitzinatu ziren beraz haren gana. Ramuntxo Etxeberri

Isilik, urratsa labur, egin beharrekoa egiteko unea ahalik eta gehien berandutu nahian bezala, hilotzari buruz **aitzinatu** zara. Xabier Montoia

Badaezpada ere, bera **aitzinatu** zaio solasean:_[...]. Aingeru Epaltza

Bidaian **aintzinatu** ahala gatazkak hurbilago daude, gehiago aipatzen dira, bertze intentsitate batez. Berria - Harian

Gero, eguna **aintzinatuz** bezala, eztitzen hasi zen iguzkiaren su hura, goibel ezti bat ekarri ilunabarrak, eta lurraren gainerat erori, emeki emeki, gauaren estalgi beltza. Herria

Berritasunaren bigarren alderdia: presuna berri bat elkarte batean sartzen delarik, odol berriarekin, erran nahi baita moldeak erreberrituko direla, hobetuko, **aintzinatuko**. Herria

Horra non berriz ere urrats batzu entzuten dituen, ez gehiagao kanpotik, ez-eta urrundik; han ber-berean dire, etxearen barnean, ganbaratik hurbil; eta beti **aintzinatuz** heldu dire. Xipri Arbelbide

Ale **aitzina** zaitez, Klaudia Schiffer! Ramuntxo Etxeberri

Entseiatuko zara bada, baldin zuhurra bazara, Valmontekin onezkoak egitera, haserre bizian egon behar baitu zurekin; eta batbederak jakin behar baitu bere ergelkeriak konpontzen, **aitzina** zakizkio beldurrik gabe. Jon Muñoz

Baina, guztien onerako, don Frantzisko **aitzinatu** zitzaien. Joan Mari Irigoien

Biak adinean sobera **aitzinatuak**, nigan adiskidea edo laguna ikusteko, eta ez lehiakide trabagarri berri bat mahaian nahiz ganberan. Aingeru Epaltza

Arduradun nagusien arabera, kontzertazio osoz **aitzinatuko** omen dira gauzak, batzu eta bertzen ikusmoldeak kondutan hartuz. Herria

Halere, atzoko egunaren orduak **aitzinatu** arau, zalantzak agertzen hasi ziren. Berria - Harian

Gaua ontsa **aitzinaturik** bururatzen da ikusgarria. Berria - Kultura

Horrela ez bada, botere publikoek beren egitura osatuko dute, baina egoera ez da **aitzinatuko**. Berria - Euskal Herria

· Hilabete batez **aitzinatu** ditu Ibarretxek Euskadiko hauteskundeak. Herria

Bozak **aitzinatu**, oraiko ganbara jauzarazirik, iduri luke zerbaiten mentura balukeela beti gainaren atxikitzeko. Herria

Gero **aitzinatuko** ditut beste puntu batzuk, lehenago egin zuzenketen ondotik erakutsiko baitute nola, berrogeita hamar bat urte honetan, izan naizen ez nolanahiko baina paregabeko zerbitzaria delako Errege Jaunarentzat eta haren aita Enperadore Handiarentzat Lehen liburutik memorian iltzaturik geratu zait iduri bat, liburuan marrazturik azaltzen zena eta esperimentu bati loturik dagoena, zeina osaba eta biok etxerat itzuli eta aste pare bat gabe **aitzinatu** baikenuen. Piarres Xarriton

Eta ohartzen naiz idazketak, lehen oldean bederen, gisa batez nahi duena nahi duenean egiten duela, berdin pentsamendua **aintzinatuz**. Piarres Aintziart

Apriorizko batasun sintetikoaren erregelak ere aurkitzen genituen eta hauen bitartez esperientzia **aitzinatu** ahal izan genuen. Ibon Uribarri

Pena emaiten zuen, gizagaizoak, zango bat bertzearen aitzinean ezin ezarriz, balantzaka, ezin **aitzinatuz**. Eneko Bidegain

Bizkarra **aitzinatuz**, bi ukalondoak mahai gainean tinkatu zituen, eta kokotsa, pikorrak aienatuak zitzaizkion kokots hori, bi esku antxumatuen gainean paratu. Aingeru Epaltza

Eta osabak bere burua **aitzinatu**, eta Maddalenen paparrean pausatu zuen, nola haur batek amarenean, eta erran zion: [...]. Joan Mari Irigoien

2 (era burutua izenondo gisa)

Kontrolatzaileak leku **aitzinatu** eta bikain batean kokatu gintuen, kotoi gorritan azafraizko arrosak zituen oihaleriaz apaindua. Koldo Izagirre

Mende horren lehen partean, nazionalismo erromantikoak izan zuen beraz eragin handia, Europako eskualde **aitzinatuetan**, baina geroxeago, nazioaren eta nazionalitatearen inguruko eztabaida luze batzuen ondorioz, nazionalitateen printzipioa bera ixuraldatu behar izan zen. Piarres Xarriton

Ez dakit nik hain erraz ulertuko ote zuten elkar piper saltzaileek eta Picasso **aitzinatu** haiek. Pello Salaburu

Ez dezakegu zorigaitzez erran, teoria zaharkitu horiek ez dutela gehiago jende **"aitzinatu"** asko liluratu. Piarres Xarriton

Ni "post 68"ko umea naiz eta heziketa **aitzinatua** genuen, Donibane Lohitzuneko Maurice Ravel ikastetxean. Ana Urkiza

Adin **aitzinatuago** batean, izpirituak kultura behar du. Andres Urrutia

Horiek hola, lehorte kaltegarrienak ez ote dira gure herri **aitzinatuetako** agintariek sustatzen dituztenak? Herria

Badutela pakistanarrek berek ere oraiko armamendu **aitzinatuez** jabetzeko dretxoa beste nornahik bezala. Herria

Pieza arinak eta zurezkoak baino azkarragoak fabrikatuz, abantail bikaina eskaintzen dute gaur egungo industria **aintzinatu** guzientzat. Herria

Aintzinatuenak ordenak ukaiteko onartu zituela bikario nagusiak berak. Xipri Arbelbide

Jakin behar da haatik sinestea flakatzen ari balinbada ere herri **"aintzinatuetan"**, ederki hedatuz doala aldiz Afrikan, Asian, Ipar Amerikan. Herria

AEBetako herri garatuago eta **aitzinatuagoaren** konpetentziaren aurka, edo Brasil, Txina edota India herri pobreago baina dinamikoen konpetentziaren aurka, Frantziak bakarrik ez dezake pisurik izan. Berria - Euskal Herria

Gaurko soziolinguistikako emaitza **aitzinatuenen** begiz so egiten dio euskaldun gisa bizi dugun errealitateari. Herria

Erran behar da ez direla jakintza hortan **aitzinatuenak** xinatarrak. Herria

Larunbatean, beti lurpean ikusi ditugu han dauden urtegiak, aspaldian eraikiak, erakusten zutela zein **aitzinatuak** ziren Alexandrian bizi ziren jendeak. Herria

3 (adizlagun eta kidekoekin)

Nola **aintzinatuko** ote dira gauzak? Dena den, hauteskunde kanpaina ofizialki urriaren 10ean abiatuko da.Haatik, zernahi ixtorio izan zen berehala eta gauzak etziren biziki **aintzinatu** zonbait urtez. Herria

Lehen egunetan, ziuzta bizian joan da lasterkaldia, gure bi basahuntzak gibeletik zoatzila, beren indarrak neurtuz, hastapenean aski harrigarriki **aintzinatuz** jende karabana eta yak behi tropen artean. Herria

Ikasi duguna, trabak trabategi alkartasunez **aintzinatu** behar dugula bai eta zuzentasun eta bakebidez. Herria

Haize-kontra **aintzinatu** behar delarik, bortizkeriaren tentazionea hor baita azkar! Herria

Lehen parte hartan aise **aintzinatu** baziren ere, 400 kilometra pasatuz 40 orenez, hots, 60 kilometra orenean, herriak eta hiriak hutseginez, gero eztitu behar ukan dutela urratsa Nasiriya hiriaren inguruetan. Herria

Berezkoek berriz ere errepikatu dute, bai Federazionearekin, bai denekin, eskuz esku nahi dutela **aintzinatu** eta ez bizkarrez bizkar. Herria

Erran behar da beste orduz hor berean emazte batek bazuela zangoa galdua, bere oina sobera **aintzinaturik**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitzinatu ahal (3); **aitzinatu arau** (8); **aitzinatu baino** (3); **aitzinatu baino lehen** (3); **aitzinatu behar** (8); **aitzinatu da** (5); **aitzinatu dela** (3); **aitzinatu den** (4); **aitzinatu dira** (5); **aitzinatu du** (3); **aitzinatu eta** (3); **aitzinatu gabe** (3); **aitzinatu nahi** (4); **aitzinatu zen** (10); **aitzinatu ziren** (5); **aitzinatu zuen** (4); **bat aitzinatu** (4); **batere aitzinatu** (3); **bezain aitzinatuak** (4); **da aitzinatu** (3); **gauzak aitzinatu** (3); **nola aitzinatu** (3)

---

aitzinatzaile 1 *izond* eragilea.

Eta sutan nengoen, eta su hark ez zuen egurrik eta ez **aitzinatzailerik** ere behar aitzina egiteko eta handiago egiteko, zeren eta sufrezko sua baitzen hura eta infernuko sua bera. Joan Mari Irigoien

2 aurreratzailea.

Kondenatuak izanak dira ere saltsa horretan sartuak izan diren diru **aitzinatzaileak**, salbu, ezagutzen ditugunen artean Etchandy Mauletarra. Herria

---

aitzinatze *iz* aurreratzea.

Posizio bakoitza segurtatu egiten zuten eta hamaika aldiz pentsatzen zuten **aitzinatze** bakoitza. Alberto Ladron Arana

Jesuitaren **aitzinatze** hura bertze mehatxu bat bezala hartu zuen txakurrak, zeinak ere aitzina egiteko keinua egin baitzuen. Joan Mari Irigoien

Ekainaren hondarrean gaude, eta diotenez, aurki erasoaldi ahaltsu bat izango da, eta **aitzinatze** horretan esku hartuko dugu. Mirentxu Larrañaga

Lanetik landa, irri partida galantak egin asmoz lankideek jokoz bezain axolagabeziaz, ostatura gonbidatzen zuten; han, Rafa askatzen zen: ez zen inor haren **aitzinatze** kementsua geldiaraz zezakeenik. Itxaro Borda

ABk "begi onez" ikusi du Batasunaren ekarpena, **"aitzinatze** ukaezina" delako. Berria - Euskal Herria

"Denek desio dugun panorama politiko ilusionagarri baten bidean, ukaezinezko **aitzinatze** bat" dela dio ABren agiriak. Berria - Euskal Herria

---

aitzinazale *izond* aurrerazalea.

Aitzinazaleen matxinadek atzerrira behartu zuten Maria Kristina erregeordea 1840an, eta orduan Esparterok hartu zuen boterea. Koldo Izagirre

---

aitzinbaldintza *iz* aurrebaldintza.

"Herrietan, edukien inguruan **aitzinbaldintzarik** gabe abiatu den lan amankomuna" txalotu zuen. Berria - Euskal Herria

---

aitzinbeldur *(corpusean **aintzinbeldur** soilik) iz* aldez aurreko beldurra.

Aments bat ote? Ala **aintzinbeldur** bat? Xipri Arbelbide

---

aitzinbidari *(corpusean **aintzinbidari** soilik) iz* aintzindaria.

Mendizabalek goraipatu du Oteiza gaurko euskal kulturgintzaren **aintzinbidari** zena. Herria

---

aitzindari *(orobat **aintzindari**)* **1** *iz/izond* aurretik doana, aurretikoa. ik **aurretiko**.

Berterretx lehioan agertzen delarik, jaun konteak (edo horren izenean mintzo den **aitzindariak**) erraiten deio: "Berterretx aigü bortala/Ützüliren hiz berehala". Herria

Mende hau izan baita, ez dezagun ahaztu, genozidioen mendea, gerren eta liskarren mendea, gosearen mendea, horretara eraman gaituzte anitzetan alde bateko eta besteko **aitzindariek**. Pello Salaburu

San Juan Bataiatzailea, judutarren erlijioan **aintzindari** izandakoa. Patziku Perurena

Ikusmolde kognitibistak [...] zein epistemologia ebolutiboak deritzenak (**aintzindariak**, besteak beste, K. Askoren artean

Emakumea **aitzindari** eta ni jarraikitzaile, gela guzti-guztietako ateak itxi zizkidan aitzina egin ahalean. Aingeru Epaltza

Gure etxeetako bizi-mailaren **aitzindari** eta bide-erakusle izan zen berea, gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

Eustat gisa horretako ikerketan **aitzindari** da Europan. Berria - Euskal Herria

Belfasteko gizona mugimendu errepublikano modernoaren **aitzindarietako** bat izan zen. Berria - Mundua

Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnen **aitzindari**. Elizen arteko biblia

Martin Luther izan zen **aitzindari**, eta haren itzulpenean erabilitako hizkera bilakatu zen alemanaren oinarri. Koldo Zuazo

Politika-giroan mugitzen zen jendeak maistra aurrerakoitzat zeukan, askatasunaren pedagogiaren **aitzindaritzat**. Juan Kruz Igerabide

Lehenengo egunean, goizetik, bisitariei errezibimendua eta ongi-etorria egin genien, biderat ateratzen gintzaizkiela, musikari talde bat **aitzindari**. Joan Mari Irigoien

Aitzindaria da BBK mikrokredituen arloan. Berria - Ekonomia

1937an iritsi zen *The Hobbit* ezaguna, eta fantasia epikoaren **aitzindaria** izan zen liburu hura. Agustin Otsoa

Gazteluko jaun traidorea **aitzindari** zutela, bailaran barrena erraz asko sartu ziren kanpotarrak egun batez. Martin Anso

Aipatzekoa da Wittgenstein eta bere *Philosophische Untersuchungen* lana **aitzindariak** izan zirela esanahiaren eta erabileraren arteko erlazio hori proposatzen. Askoren artean

Ikastetxeak gatazkak gainditzeko teknika **aitzindariak** eta ikasleekin adostutako portaera arauak landu ditu. Berria - Euskal Herria

Leondarrek, aldiz, hartu zuten **aitzindaritzat** Pelaio. Piarres Xarriton

Untzi horren **aintzindaria** eta dotzena bat mariñel errezebituak izan dira ere Ziburuko herriko etxean. Herria

Claude Labat (Lauburu elkarteko **aintzindaria**). Herria

Logikaren historian **aitzindariak** ditugu Aristoteles eta estoikoen teoria logikoak. Askoren artean

Koldo Eleizalde da, nire iritzian, euskal soziolinguistikaren **aitzindaria**. Koldo Zuazo

Argazkilaritzaren artearen norabidean itzelezko aldaketa ekarri zuen Cartier-Bressonek: argazki-kazetaritzaren **aitzindaria** izan zen Magnum agentziarekin, zapalduak goratu zituen, une erabakigarriaren eskola sortu zuen.Inolako garrantzi historiko iraunkorrik izan baldin bazuten, kristautasunaren **aitzindari** gisa izan zuten. Berria - Kultura

Hiruak izanen dira geroago jansenismoaren **aitzindariak**. Michel Oronoz

Belfasteko gizona mugimendu errepublikano modernoaren **aitzindarietako** bat izan zen. Berria - Mundua

Diofante, aljebraren **aitzindaria**. Jon Muñoz

Ruus Meyer zuzendaria hil da, zinemagintza erotikoaren **aitzindaria**. Berria - Kultura

Errusiar Kristandade Ortodoxoaren **aitzindari** haiei Uralak igarotzea eragozteko. Iñaki Mendiguren

Nahiz ez duen gaia haiek bezala aurkezten, zuzenbidea eta teologia elkarretaratzen dituelakotz eta kasu konkretuak ere eztabaidatzen, bere ondoko kasuisten **aitzindari** agertzen zaigu nafarra. Piarres Xarriton

Ekologisten **aitzindaritzat** ere jo izan da. Karlos Zabala

Rousseauren "La Nouvelle Héloïse" eta Richardsonen "Clarisse" dira berriz ere genero horren **aitzindariak**. nola gure lehenengo elkarrizketan afera bat baino gehiago aztertu beharko dugula iruditzen baitzait, eta Volanges ttipiarena bereziki, ez baitut bistatik galtzen, hartu dut gutun hau nire **aitzindari** bidaltzeko xedea. Jon Muñoz

"Harreman arriskutsuak" nobela psikologikoen obra **aitzindaria** da, gutun bidezko nobelen eta literatura libertinoaren ekarria biltzen dituena besteak beste. Jon Muñoz

Beste landa Babilonia lurraldean, non etsaien **aitzindaria** Luzifer baita. Patxi Altuna

Hitzaspertu bat izan nuen 1949an horretaz Giacomasso Olindorekin, zeina nire **aitzindari** eta maisua izan baitzen. Juan Garzia

Horretan Kontseilua mundu osoan **aitzindaria** eta berritzailea izan dela azpimarratu zuen. Berria - Euskal Herria

Pedro Leandro Ipuche-k idatzi du supergizonen **aitzindari** zela Funes, "halako Zarathustra hezgabe bezain jatorra". Juan Garzia

Estetikoki eta teknologikoki **aitzindari** dira egitasmoak. Berria - Gaiak

Wagner zen Mesiasa, Beethoven eta Mozart, haren **aitzindariak**. Josu Zabaleta

Lehendakariak **aitzindari** izan behar du prozesu honetan, beti ere pentsatuta prozesu politiko baten garaia hasten dugula. Berria - Harian

De mineralibus tratatua mineralogian lan **aitzindaria** izan zen. Berria - Gaiak

Zinema Areto **aitzindaria**. Berria - Kultura

Ikastetxeak gatazkak gainditzeko teknika **aitzindariak** eta ikasleekin adostutako portaera arauak landu ditu. Berria - Euskal Herria

Lau urte geroago, beste ekimen batek proba **aitzindari** horren lekukoa hartu du: Euskal Herriko Herri Lasterketen Zirkuitua. Berria - Kirola

Nekazari **aitzindari** haiek eta soldaduek eramandako suzko armen kausaz? Pako Aristi

Haren garaietakoa baita Dreyfus armadako **aintzindari** juduaren auzia. Xipri Arbelbide

Nutrizio alderditik begiratuta, sodio-kloruroaren ordez potasio-kloruroa baliatzen hasiak dira goi-sukaldari **aitzindari** batzuk, gorputzeko elektrolitoen orekari potasioak hobeki eusten diolako. Edorta Agirre

Next proiektua **"aitzindaria"** dela berretsi zuten erakundeok, Europako Batasunak egindako lehiaketan horixe aukeratu dutelako eta Europako 25 bazkidek parte hartuko dutelako. Berria - Ekonomia

Modu **aitzindarian** berritu dute Irunen ubide bat. Berria - Euskal Herria

2 (adizlagun gisa)

Bainan, hori da ohargarria Kortsikak lehentasuna ukanen duela, **aitzindari** gisa agertuko dela, bere berezitasuna begiratuz. Herria

Susmoa nuen Julioz gain beste askorekin ere ibiltzen ote zen nire maistra, zeren pixkana haren izaeraren alderdi ezezagun bat ari bainintzen ezagutzen: askatasun sexuala, iraultza sexuala; hartan ere **aitzindari** zebilen, nonbait, nire maistra. Juan Kruz Igerabide

Amerikarren hegazkin erraldoien burrunba urruna aditzen genuen berriz ere, gero eta hurbilago, ekaitzaren **aitzindari** entzuten diren trumoien antzera. Alberto Ladron Arana

Aitona, bada, errepidean zihoan, begiak tropa motorizatu haien **aitzindari** heldu zen lehenbiziko tankean finkatuta. Fernando Rey

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Rouch *cinema verite*-aren **aitzindari** nagusia izan zen 40ko hamarkaren amaieran. Berria - Kultura

Hola sortu ziren ikastolak, adibidez, **aitzindari** nekaezinak ziren batzuen ahaleginen fruitu oparoa. Pello Salaburu

Abdul Haqzuen izena afgandar **aintzindari** batek, errusoen kontra gudukatu zena eta hortako gaitzeko fama bildu herritarretan. Herria

Jauna, salba ezazu, otoi, Filipe gure **aitzindari** maitea! Piarres Xarriton

Napoleon Bonapartek jakobinoen aldea hartu omen zuen behin sorterrian, baina gero, Frantziaren zerbitzuan **aitzindari** ospetsu bilakaturik, Estatuaren goiko mailetara gazterik igan zen. Piarres Xarriton

Lepo horretatik hurbil bada erreka xilo bat eta leku horretan kausitzen da aspaldiko urteetan Mangado **aitzindari** famatuaren oroitzapenetan zizelkatu harrizko kurutze bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beren **aitzindari** babiloniar eta egiptoarrengandik bereizteko, berriz, erabat ukatu zuten aski dela intuizioa egia matematikoak egiaztatzeko, eta orobat ukatu zituzten zenbakizko frogak. Jon Muñoz

Alemanek denen hiltzeko manua ukana zuten **aintzindari** herratsu baten ganik. Herria

Jujatu dute Algeriako gerlan **aintzindari** handi izan den gizon bat, liburu batean azpimarratzen duelakotz den mendreneko urrikirik gabe, argi-ta-garbi torturatu eta garbitu dituela preso hartu etsai frango. Herria

Ez dezake nehork sinets hain Errege puxantak, hainbeste erreinuz eta hainbeste hiri indartsuz aberats denak, hainbeste **aitzindari** handiz eta gudariz inguratuak, hainbeste garaipenez sariztatuak ez ditzakeela suntsi bere erreinuko luthertiarren hondakinak. Piarres Xarriton

4 (izen baten eskuinean)

Arratiako euskal idazle ***aitzindariak*** liburua argitaratu dute beren kabuz, eskualdeko zenbait kultur elkarteren laguntzarekin. Berria - Kultura

Mendebaldeko munduaren itsasoz gaindiko bat-bateko hedapenean ekialderantz zihoazen portugaldar **aitzindariak**. Iñaki Mendiguren

Zurezko karabela eta galeoiek -haizearen kontra ibiltzeko prestatuek, Mendebaldeko Europa modernoko marinel **aitzindariak** ozeano guztien nagusi izateko gaitu zituztenek- mekanikoki bultzaturiko burdinazko ontzi erraldoi samarrei utzi zieten lekua. Iñaki Mendiguren

Bestelako goiburu batek inspiratu zituen jesuita misiolari **aitzindariak** -Frantzisko Xabierkoa eta Mateo Ricci-, Mendebalde modernoko teknikariek itsaso handien konkistan eskainitako aukerez baliatzen edozein erlijiotako lehenengo apostolu izan zirenak. Iñaki Mendiguren

Ekialdeko kristautasun ortodoxoak, Mendebaldeko su-armaz horniturik kosako **aitzindarien** konboietan Kama ibaitik Okhotsk-eko itsasorainoko bide luzea egin zuen. Iñaki Mendiguren

Zibilizazio baten bizitza eliza bizi baten jaiotzarako obertura izan denean, zibilizazio **aitzindariaren** heriotza ez hondamenditzat, baizik eta prozesuaren bukaera egokitzat har daiteke. Iñaki Mendiguren

Bide-blokeo islamiko handi hori erronka bat zen, eta erantzun kementsua eragin zuen blokeaturiko bi kristau-gizarteetako komunitate **aitzindarien** partetik. Iñaki Mendiguren

Errepublikanoa zen, mende arteko Donostiako ideia liberalen aldeztailea, eta Unión Artesanaren presidentea izan zen, hau da, donostiar jai eta danborraden elkarte **aitzindariarena**. Askoren artean

Hiri-estatu **aitzindari** horiek bi urrats iraultzaile egin zituzten: metalezko balio-unitate horien gaia gobernuen monopolio bihurtzea, eta gobernuen txanpon esklusiboa irudi eta gaininskripzio ofizial bereizgarriz irartzea. Iñaki Mendiguren

La Sortie de l'usine 1895ko lan **aitzindariaren** bertsioak aztertzea aski da Lumiere anaiek, lan hori filmatu zutenean, gerora zinemagile guztiek izan dituzten kezka berberak izan zituztela baieztatzeko. Berria - Kultura

Egin dezagun mende eta erdiko saltotxoa eta har dezagun E.T.A. Hoffmannen Hareetako gizona, siniestrotasunari ateak erabat zabaldu zizkion testu **aitzindaria**. Anjel Lertxundi

5 (hitz elkartuetan)

Galartzaren iritziz, UEMA "hilzorian" dago, UEMAren **aitzindari** lana baztertu egin delako. Berria - Harian

Intelektual batzuek banaka egiten dute abangoardia edo **aitzindari** lan hori, baina ahots gutxi dutenak izaten dira. Berria - Kultura

Teknologia berrien arloan **aitzindari** lan handia egin du. Berria - Kultura

Ez da harritzekoa Santuen Elkartasunak lurrean duen **aitzindari**-postua hondamendiak harrapatzea, ezin baitu mundu honetan bere zeregin espirituala bete arazo sekularrei aurre egin gabe. Iñaki Mendiguren

-Baina bazuen **aitzindari**-puntu bat -xuxurlatu zuen beste sendagileak. Josu Zabaleta

Gainerako arteak zinemaren "aurre-**aitzindari**" batzuk besterik ez dira izan, "aurre-zinema" bat, nolabait esateko. Josu Zabaleta

Erret **aitzindariek** berek, zinezko kristauak direnek, aitortzen dute, bake hori egitean bazeuzkala Erregek lau armada, haietarik bakar batekin ez baitzen gudukatzera ausartuko luthertiarren gudaloste osoa. Piarres Xarriton

6 ***aitzindari talde***

Urdiñarberen kasuan, bi **aitzindari talde** egongo dira, gorriak eta beltzak, nor baino nor dantza-jauzi emate ederragoak agertzen. Berria - Kultura

Monclarko bizkondearen **aitzindari-taldean** onartu ninduten. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitzindari bat (9); **aitzindari bezala** (5); **aitzindari da** (5); **aitzindari dira** (5); **aitzindari eta** (13); **aitzindari gisa** (6); **aitzindari hauek** (3); **aitzindari horiek** (3); **aitzindari izan** (44); **aitzindari izan da** (4); **aitzindari izan dela** (4); **aitzindari izan den** (4); **aitzindari izan zen** (18); **aitzindari lana** (4); **aitzindaria da** (13); **aitzindaria eta** (6); **aitzindaria izan** (29); **aitzindaria izan zen** (21); **aitzindaria izango** (3); **aitzindariak izan** (8); **aitzindariak izan gara** (3); **aitzindarietako bat** (7); **aitzindarietako batek** (4); **aitzindarietako batek sortu** (3); **aitzindaritzat har** (4); **aitzindaritzat jo** (3); **bat aitzindari** (3); **baten aitzindari** (3); **bere aitzindariak** (3); **beren aitzindari** (3); **duen aitzindari** (3); **espazioko hegaldien aitzindarietako** (3); **eta aitzindari** (6); **eta aitzindariak** (4); **euskal idazle aitzindariak** (3); **hegaldien aitzindarietako** (3); **hegaldien aitzindarietako batek** (3); **horren aitzindaria** (3); **idazle aitzindariak** (3); **irakaskuntzan aitzindari** (3); **izan zen aitzindari** (5); **modernoaren aitzindari** (4); **nire aitzindari** (4); **ozono troposferikoaren aitzindari** (3); **teknika aitzindari** (3); **troposferikoaren aitzindari** (3); **zen aitzindari** (5); **ziren aitzindari** (3)

---

aitzindaritasun *(orobat **aintzindaritasun**) iz* aintzindaria izateko nolakotasuna.

Enpresa Txiki eta Ertainetan Gipuzkoan duen **aintzindaritasunari** ere eutsi nahi dio. Berria - Ekonomia

Nik ez nion batere beldurrik egia esan, eta barkamena eskatzeari; baina era berean ez nituen gure nazioaren oreka eta **aitzindaritasuna** kolokan jarri nahi. Patxi Zubizarreta

---

aitzindaritza *iz* aintzindaritsuna.

Ustekabe gaiztoen beldur baitzen, **aitzindaritzan** txandakatzera behartu gintuen hiru euskaldunak, edozein mugimendu susmagarriren gaztigua egin genezan. Aingeru Epaltza

---

aitzindegi *(corpusean **aintzindegi** soilik) iz ipar* aurrealdea.

Leihoak funditu, bereziki berinak hautsiz, eta makur alde bat egin diote zanpaka etxe horren **aintzindegiari**. Herria

---

aitzindu, aitzin(du), aitzintzen *(orobat **aintzindu**)* **1** da *ad* aurreratu.

Bera **aitzindu** zitzaion nire galderari. Aingeru Epaltza

Baina ez gakizkien gertakariei **aitzindu**, eta itzul gaitezen hasierara. Jon Muñoz

14-14 izan ondoan, 20-14 **aintzindu** dira bi errioxar auzoak. Herria

Roberto Heras plantatua zen denen aintzinean bainan azken haitadan Aitor Gonzalez euskalduna **aintzindu** zaio. Herria

Denen buru, Hugues Martin eskuindarra, UMP alderdikoa, 566 bozez **aintzindu** zaio Michéle Delaunay sozialixtari. Herria

Errietari lotzeko ahalik eta aukera gutien eman nahirik -laugarrena izanen zen, eta aski nuen emakume-errietaz-, haren aurpegi ustekabetuari zirika **aitzindu** nintzaion. Aingeru Epaltza

• **2** (du aditz gisa)

Apezpikuak dogma teologiko-politikoa finkatu zuen: geroko gertakizunak **aitzindu** nahiz eta beraz gibelarazteko, teoria asmatu zuen mugimendua geldiarazteko: aski goizik erranak iraun zezan. Piarres Aintziart

Gogoari eman ditake ez dituztenez botzak **aintzindu** beharko. Herria

Alberto Iñurrategi mendizalea, Oier Aizpuru piraguista eta Aitor Gonzalez txirrindularia **aintzindu** ditu. Herria

---

aitzinean 1 *adlag* aurrean, aurretik.

Beraz bi irabaztunak joan dira **aitzinean** partida gehienean, 7-8 ren abantailarekin doi batez. Herria

Bi sakari **aitzinean**, bi ekartzale jotzale gibelean, gustaturik utzia zuten Amikuzeko ikuslea. Herria

-Xangarin -esan zuen xuxu-muxuka-, agian ni mozkor arraila nagok eta mamuak ikusten ari nauk baina, ez duka hor **aitzinean** zuhaitzez besterik ikusten? Pablo Sastre

Iragana aitzina da, etorkizunekoa gibela dago, eta aitzinekoak **aitzinean** guti irauten du. Imanol Zurutuza

Hura zen, beraz, Ungerrek, bere senarra zenak - **aitzinean** zituen hiru gizonen antzera gerra-korrespontsala bera ere- kopetan bete-betean tiro bat jaso eta egin zuen azken argazkia, kamera-lentearen bitartez ikusi zuen azken irudia. Josetxo Azkona

Azken etapa dizugu **aitzinean**, luzeskoa, baina amaierak dakarren tentsioaz betea. Jose Angel Irigaray

Aurrean gizon handi eta sendoa du, behartsua baina, eta **aitzinean** jarrita limosna txiki bat eskatzen dio, baina besteak ezetz diotso eta tratu txarraz agirika egiten dio, handik irainez uxatuz. Xabier Kintana

Aitak, Suze bat zeukan **aitzinean** eta amak Porto ttintta bat. Daniel Landart

Gehiagorik ez nuen ahoskatu eta bat-batean **aitzinean** neukan kidearen begiak ilundu ziren, zergatik ezin nuela asma hargatik. Itxaro Borda

Edo, **aitzinean** zuenari aurpegirat xuxen egozten zion, baldin hark haserrarazi bazuen, ke artean estali nahi balu bezala eta bere baitarik desagerrarazi;. Joan Mari Irigoien

2 *idia orgaren aitzinean jarri*

Horrela jokatuz, ordea, **idia** orgaren aitzinean jarri dugu nolabait. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren aitzinean (5); **aitzin aitzinean** (5); **aitzinean abiatu** (3); **aitzinean agertu dira** (3); **aitzinean ahozpeztu** (3); **aitzinean aipatu** (6); **aitzinean aitortu** (3); **aitzinean aurkitzen** (4); **aitzinean bagenu bezala** (4); **aitzinean bai** (3); **aitzinean baina** (4); **aitzinean baino** (3); **aitzinean balu bezala** (6); **aitzinean bere** (5); **aitzinean beti** (3); **aitzinean bi** (7); **aitzinean bildu** (3); **aitzinean bildua** (3); **aitzinean bururatzeko** (3); **aitzinean dago** (4); **aitzinean dagoen** (4); **aitzinean dela** (3); **aitzinean duen** (3); **aitzinean dugun** (5); **aitzinean edo** (7); **aitzinean egin** (15); **aitzinean egon** (5); **aitzinean ere** (15); **aitzinean erran** (5); **aitzinean eta gibelean** (3); **aitzinean euskal** (3); **aitzinean ez** (13); **aitzinean ezarri** (8); **aitzinean ezarria** (4); **aitzinean ezin** (5); **aitzinean gelditu zen** (4); **aitzinean gelditzen da** (4); **aitzinean gelditzen gira** (3); **aitzinean genuen** (4); **aitzinean gertatu** (3); **aitzinean hasi** (4); **aitzinean hauk** (3); **aitzinean herri** (3); **aitzinean hor** (5); **aitzinean ibili dira** (4); **aitzinean ibilirik** (4); **aitzinean ikusi** (4); **aitzinean ikusten** (3); **aitzinean iragan** (4); **aitzinean irakurri** (5); **aitzinean ireki** (3); **aitzinean izan zen** (3); **aitzinean izanak** (3); **aitzinean izanen** (4); **aitzinean jarri** (8); **aitzinean jarrita** (3); **aitzinean jartzen** (3); **aitzinean joan den** (3); **aitzinean joan dira** (7); **aitzinean jokalari bat** (3); **aitzinean jokatua** (3); **aitzinean lehenik** (4); **aitzinean nahi** (3); **aitzinean neure** (3); **aitzinean nuela** (3); **aitzinean nuen** (6); **aitzinean ongi** (3); **aitzinean otoitz** (4); **aitzinean paratu** (4); **aitzinean pasa** (3); **aitzinean pasatu** (3); **aitzinean pasatzen** (6); **aitzinean plantatu** (4); **aitzinean ukan** (3); **aitzinean zen** (3); **aitzinean zer** (3); **aitzinean zeukan** (3); **aitzinean ziren** (7); **aitzinean zituen** (3); **aitzinean zuen baino** (3)

aldare aitzinean (9); **aldarearen aitzinean** (5); **amaren aitzinean** (4); **aren aitzinean** (3); **askoren aitzinean** (4); **ate aitzinean** (20); **ate baten aitzinean** (3); **atearen aitzinean** (8); **bai aitzinean** (3); **baina aitzinean** (3); **baionako auzitegi aitzinean** (3); **baionako auzitegiaren aitzinean** (7); **baionako suprefeturaren aitzinean** (3); **baten aitzinean bezala** (4); **baten aitzinean gaude** (3); **baten aitzinean gelditzen** (6); **baten aitzinean zegoen** (3); **batzuen aitzinean** (13); **bazkal aitzinean** (6); **begi aitzinean** (8); **begien aitzinean daukat** (4); **behariren aitzinean** (27); **beraren aitzinean** (4); **bere aitzinean** (26); **bere etxe aitzinean** (4); **beren aitzinean** (8); **berriz aitzinean** (3); **bertzeen aitzinean** (9); **beti aitzinean joan** (6); **borta aitzinean** (6); **bortizkeriaren aitzinean** (3); **bulego aitzinean** (3); **bulegoaren aitzinean** (3); **buruan buru aitzinean** (3); **dendaren aitzinean** (3); **dira aitzinean** (6); **dorretxearen aitzinean** (3); **du aitzinean** (3); **dugu aitzinean** (3); **dut aitzinean** (3); **dute aitzinean** (5)

eder baten aitzinean (5); **ederraren aitzinean** (3); **egoitza aitzinean** (5); **egoitzaren aitzinean** (7); **eliza aitzinean** (14); **elizaren aitzinean** (9); **en aitzinean** (5); **ene aitzinean** (27); **ene begien aitzinean** (5); **entzuleren aitzinean** (4); **epailearen aitzinean deklaratu** (3); **eraikinaren aitzinean** (3); **ere aitzinean** (3); **erregearen aitzinean** (3); **galtzaleak aitzinean** (4); **gazteak aitzinean** (3); **geltoki aitzinean** (5); **geltokiaren aitzinean** (3); **geure aitzinean** (3); **gizon baten aitzinean** (3); **gizonen aitzinean** (3); **gradignaneko espetxearen aitzinean** (3); **gure aitzinean** (10); **gurutzearen aitzinean** (3); **gurutzefikatuaren aitzinean** (3); **guziaren aitzinean** (3); **guzien aitzinean** (7); **guztien aitzinean** (13); **haien aitzinean** (23); **handi baten aitzinean** (4); **handiaren aitzinean** (4); **hauen aitzinean** (4); **hauk aitzinean** (4); **haundiaren aitzinean** (3); **hautetsien aitzinean** (4); **herriko etxe aitzinean** (32); **herriko etxearen aitzinean** (22); **herriko etxeen aitzinean** (6); **herritarren aitzinean** (4); **hil harriaren aitzinean** (5); **hilobi aitzinean** (3); **hilobiaren aitzinean** (3); **honen aitzinean** (7); **hor aitzinean** (6); **horien aitzinean** (13); **hotelaren aitzinean** (3); **hunen aitzinean** (3); **ikusleen aitzinean** (4); **ikusleren aitzinean** (5); **indarraren aitzinean** (3); **indartsua da aitzinean** (4); **irabazleak beti aitzinean** (3); **izan aitzinean** (3)

jainkoaren aitzinean (15); **jatetxearen aitzinean** (3); **jaunaren aitzinean zegoen** (3); **jauregiaren aitzinean** (6); **jende aitzinean** (3); **jendearen aitzinean** (8); **jendeen aitzinean** (4); **jenderen aitzinean** (6); **jujeen aitzinean** (6); **kameren aitzinean** (3); **komunikabideen aitzinean** (3); **kontsulatuaren aitzinean** (3); **kutxaren aitzinean** (4); **lagunen aitzinean** (7); **lan burtsaren aitzinean** (3); **legearen aitzinean** (7); **levert epailearen aitzinean** (5); **mahai aitzinean jarririk** (3); **mahaiaren aitzinean** (5); **ministroaren aitzinean** (3); **mirailaren aitzinean** (7); **munduaren aitzinean** (7); **nagusiaren aitzinean** (4); **naiz telebixtaren aitzinean** (3); **neskaren aitzinean** (3); **neure aitzinean** (4); **neure begien aitzinean** (3); **nire aitzinean** (13); **nire begien aitzinean** (3); **nuen aitzinean** (3); **ohien aitzinean** (3); **ordezkarien aitzinean** (3); **osabaren aitzinean** (4); **osoaren aitzinean** (4); **ostatuaren aitzinean** (5); **postaren aitzinean** (3); **prentsaren aitzinean** (17); **publikoaren aitzinean** (5); **ren aitzinean** (7); **saltegiaren aitzinean** (3); **sasoi aitzinean** (8); **sudur aitzinean** (3); **suprefetura aitzinean** (5); **telebistaren aitzinean** (6); **tribunalaren aitzinean** (3); **udaletxearen aitzinean** (3); **zen aitzinean** (4); **ziren aitzinean** (4); **zuen aitzinean** (7); **zure aitzinean** (17)

---

aitzineko ik **aintzin 9**.

---

aitzineratu, aitzinera(tu), aitzineratzen *ipar* da/du *ad* aurreratu.

Dijon 1-0 **aitzineratu** zen, jokalari bat gutxiago zela. Berria - Kirola

Handik oren laurdenera Frantziako Ibañez egotzi zuen epaileak 10 minuturako, eta 6-3 **aitzineratu** zen Gales. Berria - Kirola

Baionak ongi baliatu zuen jokalari bat gehiago zeneko egoera, eta 11-8 **aitzineratu** zen Vermisek eginiko entseguarekin. Berria - Kirola

Dijon 1-0 **aitzineratu** zen, jokalari bat gutxiago zela. Berria - Kirola

Atzoko lehiari dagokionez, Stadek Miarritzek baino gehixeago agindu zuen jokoan, lehen zatian, eta baita 6-9 **aitzineratu** ere. Berria - Kirola

Lehen zatian 16-0 **aitzineratu** ziren, eta garaipenarekin agur esan zioten Steve Hansen entrenatzaileari. Berria - Kirola

Bigarren zatian markagailuan **aitzineratzen** jakin izan genuen, ongi agindu genuen, askotan maisutasunez eta entseguak egiteko aukera ugari sortu genuen. Berria - Kirola

Mulhouse jokalari bat gutxiagorekin ari zela baliatu zuen Hormadik 0-1 **aitzineratzeko** oren laurdenean. Berria - Kirola

Jokalari bertsuek **aitzineratu** zuten Hormadi bigarren zatiaren hasieran, Daramyk sartu baitzuen gola, Zdrahalen pasea baliatuta (1-2). Berria - Kirola

Petitek **aitzineratu** zuen Amiens, jaurtiketa zehatza eginda. Berria - Kirola

3-6 **aitzineratu** ondoan, bi entsegu egin zituen, baina lapurtarrek erasora jo zuten, eta baita Noutaryek entsegua egin ere. Berria - Kirola

Lehen zatiko hemezortzigarren minutuan mugiarazi zuen markagailua Hormadik, 0-1 **aitzineratuta**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitzineratu zen lehen (3); **aitzineratu zen markagailuan** (3); **aitzineratu zen miarritze** (4); **aitzineratu ziren** (5); **aitzineratu zuen taldea** (3)

aitzineratze *ipar iz* aurreratzea.

Horixe izan zen eskoziarren **aitzineratze** bakarra partidan. Berria - Kirola

aitzinetapa *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi) iz* txirrindularitzan, atariko etapa. ik **prologo 2**.

Guk asmaturik nahiz besteri ikasirik, arian-arian iritsi zitzaizkigun _i_Egunkaria_/i_ren orrietara hainbat eta hainbat esapide: diru bereiziak (fondos reservados, caisse noir), **aitzinetapa** (etapa prologo, prologue), telefonoa hartuta eduki (tener el telefono pinchado), etxeratze dei (toque de queda, couvre-feu), izatezko bikotea (pareja de hecho, PACS)... ETC-literatura, saiakera

Izan ere, zerrenda ofizialak bihar, zapatua, aditzera emango dira, eta **aitzinetapa** , prologoa, ez da porretan kontuan hartuko. ETC-prentsa

Benahavisko **aitzinetapan** egindako lan zoragarriak eman dio, neurri handi baten, garaipena Markel Irizarri (RadioShack). ETC-prentsa

Ez da **aitzinetapa** bat, erlojupeko bat baizik. ETC-prentsa

Roglic bigarren geratu zen bezperan, **aitzinetapan** . ETC-prentsa

UTMBaz gain, beste sei lasterketa jokatuko dituzte: astelehenean hasiko dira PTL? 300 kilometro 25.000 metroko desnibel positiboa? eta MCC? 40 kilometro eta 2.300 metroko desnibela?: asteartean, YCC? 6,3 kilometroko **aitzinetapa** bat, eta 27 kilometroko lasterketa, 1.800 metroko desnibelarekin?: asteazkenean, TDS? 145 kilometro eta 9.100 metroko desnibela: ostegunean, OCC? 55 kilometro eta 3.500 metroko desnibela: eta ostiralean, CCC? 101 kilometro eta 6.100 metroko desnibela?. ETC-prentsa

Itzulien hasieran **aitzinetapak** egin ohi dira (5-15 km inguru) adibidez. Bestalde, munduko txapelketan 40-55 km inguruko erlojupekoak ikusi ohi dira sarritan. ETC-entziklopedia

aitzinetik *adlag* aurretik.

Aitzinetik tokien atxikitzea hobe da telefonatuz: 05 59 29 94 82. Herria

Aitzinetik , deneri ongi etorri! Herria

Eta gainera, ezerk ez digu **aitzinetik** esaten, aztergai hori aintzakotzat hartzeko modu horietako bat, besteak baino lehenagokoa edo hobea den. Isabel Arrigain

Aitzinetik behar da ikusi oheratu gabe ez dela behar biluzi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Besteren gainean egitea predikua beti izaten baita musika txarra **aitzinetik** ordaintzea bezalakoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Inork ez zekien hain urrun iritsi aurretik zer gerta zitekeen.Aurrera arin egiten zuten, baina arretaz, zaldi gaineko esploratzaileak **aitzinetik** zihoazen bitartean. Agustin Otsoa

Edo gauzak **aitzinetik** ongi karkulatuak ziren... Michel Oronoz

Gauerdi puntuan topaka eta urrupaka edan dizugu, nik **aitzinetik** baso bat ur, badakizu ur goinea, ur barrena... Jose Angel Irigaray

Aldiz **aitzinetik** ikusia baldin baduzu, zure bidea ontsa kalkulatua baldin baduzu, eroriko zira beharbada bainan arrisku guttiago duzu edo erorita zutituko. Menane Oxandabaratz

Hirugarrenekoz **aitzinetik** lerratzen zitzaizkigunean, jadanik saltzeko esperantzaz etsiak ziren laborariei pisua eta ahalik preziorik merkeena idatzia zeramaten papertxoak barreiatzen zizkieten. Itxaro Borda

Baina hori **aitzinetik** banekien. Daniel Landart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitzinetik abiatu (3); **aitzinetik abiatuko** (3); **aitzinetik abiaturik** (3); **aitzinetik abisatu** (3); **aitzinetik atxik** (3); **aitzinetik behar** (3); **aitzinetik beren** (4); **aitzinetik bertze** (3); **aitzinetik bi** (3); **aitzinetik dela** (3); **aitzinetik emaiten ahal** (3); **aitzinetik eraman zituen** (3); **aitzinetik ere** (8); **aitzinetik gauza** (3); **aitzinetik hartua** (4); **aitzinetik iragan** (4); **aitzinetik jakina** (4); **aitzinetik pasatu** (4); **aitzinetik pasatzean** (4); **aitzinetik pasatzen** (3); **aritu ziren aitzinetik** (3); **aski aitzinetik** (4); **baina aitzinetik** (6); **dira aitzinetik** (4); **epailearen aitzinetik** (3); **eskerrak aitzinetik** (3); **ez da aitzinetik** (3); **gure aitzinetik** (5); **herriko etxe aitzinetik** (7); **hori aitzinetik** (3); **horren aitzinetik** (6); **izena aitzinetik** (3); **izenak aitzinetik emanez** (3); **miarritze aitzinetik** (3); **nahiz eta aitzinetik** (3); **presondegi aitzinetik** (3); **tokiak aitzinetik** (7); **tokiaren aitzinetik atxikitzea** (3); **txartelak aitzinetik** (4); **zen aitzinetik** (9); **zirela aitzinetik** (3); **ziren frantziarrak aitzinetik** (3); **zuen aitzinetik** (3); **zure aitzinetik** (3)

aitzinetiko *izlag* aitzinekoa.

Prefosta, Kontzilioaren **aitzinetiko** teologia zen, guti gora-behera Belapeire baten kateximan geroztik ediren dügüna. Herria

Hortaz, gure baitan egiazko iritzia dagoela esan nahi du, sortu **aitzinetiko** iritzi zuzena, arimak ezagutzen zuena argia ikusirik. Askoren artean

Aitzinetiko tenpestak itoak nituen, apezturik. Piarres Aintziart

aitzingidari *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* aitzindaria, gidaria.

Nabigatzen ari da nabigatzailea, jakin arren **aitzingidari** dituen izarrak sekulan ez direla ukigarri izanen. ETC-literatura, saiakera

Hark egiten gaitu obedient gure **aitzingidarien** aldera eta mezprezagarri geure begietan. ETC-literatura, saiakera

Sartagudari lehen tokia dagokio, zoritxarrez, Nueva Españako **aitzingidariek** 1936ko uztailaren 18ko estatu kolpearen ostean Nafarroako lurretan osatu zuten izu-laborriaren argazkian. ETC-prentsa

Hala nola ASPAN Ipar Amerikaren Segurtasunerako eta Oparotasunerako Aliantza da **aitzingidari** , beste auzigai batzuk atxiki baitzaizkio. ETC-prentsa

Karrubiri bost milioi lagunek eman zioten botoa 2005ean, eta, Khatamik, erreformismoaren **aitzingidaria** izaki, behin baino gehiagotan eskatu dio hari amore emateko. ETC-prentsa

aitzinikusi, aitzinikus(i), aitzinikusten *ipar* da/du *ad* aurreikusi.

Haurrak baditu, sistemak **aitzinikusi** du denboraz erdiz lan egitea. Berria - Euskal Herria

Argitalpenak 3.000 ale ditu eta dagoeneko egokitzapen lanak **aitzinikusi** dituzte. Berria - Euskal Herria

Udan, eskakizunak ukatuak izanen zirela **aitzinikusiz** , Seaskak hainbat bilkura egin zituen Frantziako Hezkuntzarekin eta Bordeleko Errektoretzarekin. Berria - Euskal Herria

Auzolanak herenera mugatu zuen **aitzinikusitako** xahutzea. Berria - Euskal Herria

Alta, ezberdintasuna nabarmena da oraingoan, legea betetzen ez duten gurasoentzako zigorrak **aitzinikusten** direlako. Berria - Harian

aitzinikuspen *iz ipar* aurreikuspena.

Aldaketa egoeran, arriskuen **aitzinikuspena** egiteko sarea hobesten dute adituek. Berria - Euskal Herria

Horregatik **aitzinikuspen** irizpideak indarrean jartzea hobetsi du Garapen Kontseiluak. Berria - Euskal Herria

aitziniritzi *iz* aurreiritzia.

Liburuko sarreran, **aitziniritzien** garrantzia aipatu dut. Berria - Euskal Herria

Aitziniritzietan erraten da usu eta hori da frantsesaren ideologia frantsesa mehatxatua dela. Berria - Euskal Herria

---

aitzinirudi *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* aurreirudia.

Are gehiago, emakumeek izango zuten ezkontza-patuaren **aitzinirudi** gisa, deabru bakarra txertatu zuen sorgin-ehizak, eta ez, Erdi Aroan eta Errenazimentuan bezala, deabru ugari. ETC-literatura, saiakera

Araba, Bizkai eta Gipuzkoa bakarrik aurreikusten zituelako, eta horrek Euskal Autonomia Erkidegoa osatuko zuten lurraldeen **aitzinirudi** bat adierazten zuelako: Baskongadetako hiru lurraldeak soilik eta aurrerago Nafarroa. ETC-literatura, saiakera

Diseinua deritzo edozein alorretako irtenbide-bilaketan konfigurazio mentalaren ("**aitzinirudiaren**") aurretiko prozesuari. Industrian, ingeniaritzan, arkitekturan, komunikazioan edota sormena beharrezko duten jakintzagaietan erabiltzen da batik bat. ETC-entziklopedia

---

aitzinirudikatu, aitzinirudika, aitzinirudikatzen *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* du *ad* aurreirudikatu.

Posible den neurrian, etapa bakoitzak **aitzinirudikatzen** du, bere irakaspen eta azalpenetan, jomugatzat duen eskubide eta justiziaren ikuskera, zeinarekiko erreferentziarekin ezagutuko baitugu, geroago, aurkezten zaizkigun arau moralak justifikatuak direla. ETC-literatura, saiakera

Jacques Garelloren aburuz, Richard Cobdenekin batera XIX. mendeko ekonomilari bakarra da Ludwig von Mises, Friedrich Hayek edo Pascal Salinek garatu zituzten XX. mendeko kontsumitzailearen teoriak **aitzinirudikatzeko.** . ETC-entziklopedia

---

aitzinjolas *iz* aurreko jolasa.

Aitzinsolasa, **aitzinjolasa** . Iñaki Arranz

---

aitzinka *(orobat **aintzinka**) adlag* aurreraka.

Elgarren beldurrean jokatu duten hastapen huntan, zortzigarren berdintzea zuten 19tan, biak elgarren **aitzinka** ibilirik. Herria

Bainan kasu, ez goaz denetan **aintzinka** ! Herria

---

aitzinkontu *(orobat **aintzinkontu** eta **aintzinkondu**) iz* aurrekontua.

Auchek 1,5 milioi euroko **aitzinkontua** du eta 12 jokalari fitxatu ditu; tartean, Idieder Baionako ohia. Berria - Kirola

40.000 euroren **aintzinkontua** agertu da. Herria

2000 urteko konduak ikertu eta onartu ondoan aurtengo **aintzinkondu** edo buxeta zen aipagai nagusia. Herria

Orain jakin da zazpi miliar euroz goiti gosta direla, hots, **aitzinkontuaren** doblea. Herria

-2005eko **aintzinkondua** : itzulikatzeko diruketa 274.230 E horietarik 168330 inbeztizamenduentzat. Herria

Talde batzuk izen handia dute paperean, baina errugbia, zorionez, ez da bideratzen **aitzinkontu** potolo batekin, beste baliabide batzuk behar dira eta ondo jakin behar da haiek erabiltzen. Berria - Kirola

---

aitzinkor *izond* aurerakoia.

Hiru pondu zaizkote agertu **aitzinkorrak** ikerlarieri. Herria

Eta bere garapen hori teknika berrienen mailean da **aitzinkorrena** abiatua, hor % 50 ko garapen goratzea kondatuz azken konduetean. Herria

---

aitzinlari *(orobat **aintzinlari**) iz* errugbian, aurrelaria.

Aitzinlaria zaren aldetik, zertan datza ingelesen eta zuen arteko alde nagusia jokoan?. Berria - Kirola

8-32 (41 min): Manentek entsegua, **aitzinlarien** jokaldian. Berria - Kirola

Aitzinlarien joko gogorrean nagusitzen hasi ziren lapurtarrak, eta, hain justu, **aitzinlariek** hasitako jokaldian egin zuen Martin-Aranburuk lehen entsegua. Berria - Kirola

"Zehaztasun handiagoz jardun genuen Tolosaren kontra eta arreta galdu gabe", aipatu du Paco **aitzinlarien** entrenatzaileak. Berria - Kirola

Lan saio horren amaieran lehen aldiz bildu zineten **aitzinlariok** , biribilean elkar uztartuta solas egiteko. Berria - Kirola

Hiadlosky atezainaren inguruan ari zen jokatzen Hormadi, garaipena lortzeko presioa eginez, eta halako batean, Aubrik pasea egin zion Courallyri, eta **aintzinlariak** bizkarra emanda jaurti zuen, gol polita sartuz. Berria - Kirola

Xapelketan Titin errege **aintzinlarietan** , bai Retegi bai Olaizolaren kontra. Herria

Uztartze irekiak uztartze-laxo bihurtzea gustuko dute **aitzinlariek** , eta zigor kolpeak eragiten dituzte. Berria - Kirola

Ondorioz, **aitzinlariek** eta gibelekoek bina entsegu egin zituzten. Berria - Kirola

Eskasa irabazi, uztartze-laxoa osatu **aitzinlariek** , eta entsegu marraren gainean Yachvilik baloia pausatu zuen. Berria - Kirola

Miarriztarrak 22 metroko lerrotik hasi ziren erasoan, **aitzinlariek** metro ugari irabazi eta azken pasea Betsenek jaso zuen eskuinean korrikaldia burutzeko. Berria - Kirola

Ez zen norgehiagoka ikusgarria gertatu, baina orrokatua; batez ere, **aitzinlarien** uztartzeetan. Berria - Kirola

Dublinen gehiago izan ziren **aitzinlari** irlandarrak, baina zalearen aupadarekin, borrokarako gogoz ariko dira, zelaiaren egoerara egokituta. Berria - Kirola

"Amiensek **aitzinlari** onak ditu, horregatik, defentsan sendo eta kontraerasoan eraginkor jokatu behar diegu", aipatu du Lutaud entrenatzaileak. Berria - Kirola

UNANUE **aintzinlari** trebe eta indartsuak ereman du partida bere alde, Ruiz gazte zaintsuaren laguntzarekin. Herria

Aintzinlari zintzoa da Antzuolarra eta Etxaniz ez da engana errexa aintzinean. Herria

Baloiak irabazten eraginkor aritu ziren lapurtarrak eta berriro aitzina egiten duen **aitzinlari** multzoa duela erakutsi zuen. Berria - Kirola

Izan ere, Grenoblek **aitzinlari** apartak ditu: Podlaha, Bachelet, Meunier, Hamalainen... Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitzinlariek lan** (3); **miarritzeko aitzinlariek** (4); **miarritzeko aitzinlarien** (3)

---

aitzinmotibapen *iz ipar* aldez aurreko motibazioa.

Interesatuak direnek, igor ditzatela 2003ko uztailaren 11a **aitzinmotibapen** gutun bat eta CV bat (ez ahantz telefono zenbaki baten azaltzea) Seaskara. Herria

aitzinpartida *(orobat **aintzinpartida**) iz ipar* aldez aurreko partida.

Donostiako **aitzinpartida** hau ez da iduri bezain txarra izan: 5-6 izanak ziren luzaz jokatu ondoan. Herria

Haatik **aintzinpartida** bat izanen da 4-etan. Herria

---

aitzinsolas *iz* hitzaurrea.

La Nouvelle Héloïse-ko **aitzinsolasa**. Jon Muñoz

AITZINSOLASA: NOLAKOA ZEN URBIAKO HERRIA XIX. MENDEAREN ATZENEKO HERENEAN. Koro Navarro

Berak egin du liburuaren **aitzinsolasa**, eta aukeratu ditu agertu diren artikuluak. Berria - Kultura

Hemen jarri dugun kapitulu hau hurrengoaren **aitzinsolasa** besterik ez da. Xabier Kintana

Carolus Hourcade-ren litografia-erakusketaren katalogorako **aitzinsolas** bat (Nîmes, 1914). Juan Garzia

Nola gure Konfesoreen Eskuliburu guzian mintzo garen arimaz eta haren ekintza onez edo gaiztoez, haiek baitute hura salbatu edo kondenatu behar sekulakotz, lehen **aitzinsolas** honetan erraten eta frogatzen dut, hartaz hobeki baliatzeko, irakurleari dagokion zerbait xehetasun emanez. Piarres Xarriton

Konturatu al zarete **aitzinsolas** honek lau atal dituela (lau letrako izenburu banarekin), atal bakoitzak lau paragrafo, paragrafo bakoitzak lau esaldi? Iñaki Arranz

Laclosek berak **aitzinsolasean** garbi adierazten du estiloari ematen dion garrantzia: gutunen estilo akatsak aipatzen ditu gaitzesgarriro, baina gutunon estilo aniztasunari merezimendu irizten dio. Jon Muñoz

Bosgarren **aitzinsolasean** erraten da eta frogatzen bertutearen mugimendua edo sentsu gurarien ahalmena dela arimaren irrika edo pasioa, arima bultzatzen duena, berak asmatu ongiaren edo gaitzaren aldera. Piarres Xarriton

Euskal Herriko hamasei lagunen aurka frankismoak egin zuen epaiketa handiaz liburua kaleratu zuen Gisele Halimi abokatuak, Jean Paul Sartreren **aitzinsolasarekin**. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitzinsolas honetan** (4); **aitzinsolasak erraten du** (4); **aitzinsolasean erran** (4); **aitzinsolasean erran bezala** (3); **aitzinsolasean erraten** (4); **aitzinsolasean erraten da** (3)

---

aitzintaldetxo *iz*

Aitzintaldetxo bat bazen hirian, igande eguerdia igaro eta berehalaxe aldirietako pub batera -non ere kideek, behar zen bezala, bona-fide bidaiari aitortzen baitzituzten beren buruak- ahalik eta arinen iristeko helburuarekin hiritik irteten zena, eta talde horretakoa zen Harford Irene Aldasoro

---

aitzintto *iz adkor* aurretxoa.

-Eguberri **aitzinttoan** ezkondu zineten -aldarrikatu zuen, osabari zuzenduz. Elena Touyarou

Zortziak **aitzinttoko** han nintzen. Janbattitt Dirassar

---

aitzinttoan *(orobat **aintzinttoan**) adlag* lehentxeago.

Europearrenbatasuna arras kexu dabila amerikanoen kontra, doi doia atzineko erahiltze horren **aitzinttoan** garbiki errana zuten bezala. Herria

Azken egitura hunek bere biltzarra egina zuen **aintzinttoan**, azpimarratuz urrats baitezpadakoak bete behar zirela euskararen salbatzeko, bereziki Herriko Etxeen diru-laguntzak emendatuz, artetik IKAS-. Herria

-Eguberri **aitzinttoan** ezkondu zineten -aldarrikatu zuen, osabari zuzenduz. Elena Touyarou

Hala ere, ozkaño bat kausitu dute pestak hasi **aitzinttoan**, asteazken eguerditan. Herria

---

aitzintxe *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi) iz* lehentxeago, arestian; aurreraxeago.

Badiat lagun bat, hor **aitzintxeago** bizi dena, eta han idortuko haiz kanpotik. ETC-literatura, saiakera

Aitzintxeago zihoazen lau bidaiari presatuek bazterrarazi eta bota zuten errornes gaskoia. ETC-literatura, saiakera

Aitzintxeago esan legez, Jainkoaren eta lurraren urruntasun platonikoa ia sakrilegoki apurtzen da: Jainkoa -hilda- lur bihurtzen da eta lurtarrak zerurantz doaz. ETC-literatura, saiakera

Aitzintxe aipaturiko Urkulluk Raxoiri eginiko bisitan bere konfiantza agertu zuen jeltzaleak: ETC-literatura, saiakera

Aitzintxe bere kideekin hitz egiten zuen hizkuntzak ez dio jadanik balio. ETC-literatura, saiakera

Ernatu eta begiak zabaldu zituenean, aita eta biok zutitu eta ilundu **aitzintxe** Ezkaban beheiti etxerako bidea hartu genuen. ETC-literatura, saiakera

Eta aratseko 8ak **aitzintxean**, hara Andoni Egaña laugarren xapela buruan, Manuel Uztapideren marka hausten zuela, jende guzia xutik, txaloen burrusta ezin agortu batek Zarauzko maixua zuela agurtzen. ETC-prentsa

Meza bururatu **aitzintxean** komuniante horietan zen Daniel Lagrenadek gure elizako organo handia hartu dauku eta 10 bat minutaz organo hori biziki ederki burrunbatu du. ETC-prentsa

Gertaeren narratiba arloan harrigarria da ematen ari den mezu trukaketa, **aitzintxe** etsaiak zirenen teorien nahasmena, elkar ulertzeko saioak, ikuspegi oso ezberdinen batuketa leuna, denontzat balioko duen kontakizun bat eskuratuko duena, agian. ETC-prentsa

ETAk dimititu **aitzintxe** Floren Aoizek estatu espainolaren diagnosi zorrotza egin zuen artikulu batean: Â"Espainiak hondamendira garamatza eta, estaturik gabe, ezin dugu gure bidea hartu. ETC-prentsa

---

aitzintxean *adlag* lehentxeago.

Eta aratseko 8ak **aitzintxean**, hara Andoni Egaña laugarren xapela buruan, Manuel Uztapideren marka hausten zuela, jende guzia xutik, txaloen burrusta ezin agortu batek Zarauzko maixua zuela agurtzen. Herria

---

aitzinurrats *iz* aurreranzko urratsa.

Maila formalean, erranen dut **aitzinurrats** bat dela. Berria - Euskal Herria

Ingurumenaren arloan **aitzinurrats** garrantzitsua da, ardura xedea kokatu baitu Frantziako Konstituzioan, giza eskubideen aipamenaren pare. Berria - Euskal Herria

---

aitzinuste *(corpusean **aintzinuste** soilik) iz ipar* aurreustea.

Aintzinuste eta ahalaren trabak uzkailtzen. Herria

---

aitzitik *lok* bigarren perpausak lehendabizikoak dioenaren kontrakoa dioela adierazten duen hitza. ik **ostera**[2]; **alderantziz**.

Hori ez da hilko aitaren erruarengatik; **aitzitik**, bizi egingo da. Elizen arteko biblia

Aingeruak ere ez daude gorputzez hornituak; **aitzitik** adimenak dira, materia guztitik landa. Xabier Kintana

Hala ere, ez zen marmarrik, ez kexarik entzuten; **aitzitik**, bihotz barez eta gogo alaiz pazientzia mantentzen zuten. Askoren artean

Solasketa gozoa zuen, ez zitzaion eromenaren inolako zantzurik ikusten; **aitzitik**, oso ondo lotzen zituen kontuak, haririk galdu gabe. Anjel Lertxundi

Hemen ezerk ezin digu itzuri, zeren arrazoimenak osoro bere baitatik sortzen duena ezin baitzaio berari ezkutatu, **aitzitik**, arrazoimen berak dakar argitara bere printzipio komuna aurkitu ahala. Ibon Uribarri

Lexiko luze bat ahaztu beharra zegoen horretarako, batez ere psikoanalitikoa; **aitzitik**, oso baliagarria izan zitekeen herri tradizioko bestiarioa. Bernardo Atxaga

Poek ez du eszenografia bat antolatzen, izumenezko ipuin klasikoetan bezala; **aitzitik**, gogo egoera iradokitzea da helburua. Koro Navarro

Ez zen modurik izan jende hari alde eginarazteko; **aitzitik**, gehiago iristen ziren aldiro. Juan Garzia

Ohitura ez zen hurrengo mendeetan galdu; **aitzitik**, berritu eta indartu egin zen gerraren bat edo pertsekuzioren bat sortu zenero. Bernardo Atxaga

Berrogeita hamarreko urteetako hizkuntzalaritzan, auzi metodologikoa argitzea ez zen arazo hutsala; **aitzitik**, berebiziko garrantzia zuen, kontua hizkuntzaren egitura era zientifikoan ikertzeko bidea urratzea baitzen. Itziar Laka

Kolorea ez da huskeria; **aitzitik**, jakin-min eta grina handia sortu izan du iragan mendeetan artista, filosofo eta naturaren zientzialaririk handienen artean. Xabier Olarra

Kamioiaren ondotik igarotzean, ez nintzen makurtu besteetan bezala, aita zer lanetan ari zen begiratzeko, izugarri gustukoa bainuen mekanika; **aitzitik**, aurrera jarraitu nuen presaka, sarrerako aterantz. Juan Kruz Igerabide

Aztergai linguistikoa ez doa inondik ere kontuan hartzen den ikuspegiaren aurretik; **aitzitik**, esan liteke ikuspegia dela aztergai linguistikoa sortzen duena. Isabel Arrigain

Gizarte prekapitalistetan, antolamendu ekonomikoaren ikuspuntutik, ekonomia ez zen alor beregaina; **aitzitik**, sistematikoki txertatua zegoen gizarte-harremanetan. Koro Navarro

Ez zen inondik ere antzeko diren biren arteko adiskidetasuna: **aitzitik**, jatorrien desberdintasunak berak elkar-trukerako "salgai"tan aberats bilakatzen gintuen. Juan Garzia

Ez da halakorik; **aitzitik**, batzuetan egia distiratsu ageri zaigu, eguna bezain argia iruditu arte. Xabier Kintana

Arrazoimenaren asmoa bere idealetan, **aitzitik**, apriorizko erregelen araberako determinazio osoa da. Ibon Uribarri

Aipatutako erregelak edo irizpideak beren iturburu garaienen arabera enpirikoak besterik ez dira eta hauek ezin dute inoiz gure gustamenaren judizioa gidatzen duten apriorizko lege determinatuetarako balio; **aitzitik**, azken honek osatzen du lehenaren zuzentasunaren frogarria. Ibon Uribarri

Iraintzen zutenean, ez zuen irainez erantzuten; sufriarazten ziotenean, ez zuen mehatxurik egiten; **aitzitik**, zuzen epaitzen duenaren eskuetan jartzen zuen bere burua. Elizen arteko biblia

-Berorrek ez dit xuxen ihardetsi; **aitzitik**, ihes egin dio ene galdegiteari. Joan Mari Irigoien

Batzuentzat, krisietatik ateratzeko gastu publikoa areagotzea ezinbestekoa da, eta beste batzuentzat, **aitzitik**, garrantzitsuagoa da zergak murriztea, esaterako enpresen irabazien gaineko zerga, inbertsioa eta enplegu sorkuntza sustatzeko. Iñaki Heras

Eta uste genuenean ezen, ohi bezala, luze ihardetsiko ziola, **aitzitik**, Fernando Pachecok ezin laburrago erran zion: [...]. Joan Mari Irigoien

Behin haserretzen bazen, haren kolerak ez zuen ematzeko husgunerik, ez baretzeko atseden-lekurik edireiten: **aitzitik**, handitu eta areagotu egiten zitzaion, harik eta mihian eta odolean lehertzen zitzaion arte, or errabiatu bat iduri, adausia eta ausikia baterat zituena. Joan Mari Irigoien

Zaharrak berri; ezein libertate unerik: bai **aitzitik** libertate une horri itzurtzeko arreta handia. Jon Muñoz

Nik, **aitzitik**, hantxe geratzeko agindu nion, neu joango nintzela, joan beharra neukala. Juan Kruz Igerabide

Gure gaurko gizarteak -euskaldunok ez gara salbuespen, **aitzitik** baino- halako urrutiramendu bat erakusten dugu sentimenduen eta emozioen aurrean, sentimenduen jarioak ahuldu egingo bagintu bezala. Anjel Lertxundi

Horra zergatik botere laikoa aitzinatzen zaion elizaren botereari adinez eta denboraz eta, **aitzitik**, elizaren botereak gainditzen duen botere laikoa duintasunez eta bikaintasunez. Piarres Xarriton

Ala, **aitzitik**, pentsatu behar zuen nahita aukeratu zituela adiskideak matematikariok, berak asmatu beharreko arrazoi jakin batzuk zirela medio? Jon Muñoz

Merkataritzarik batere ez izateak, **aitzitik**, lapurreta dakar. Iñaki Iñurrieta

Aitzitik, ordea, erlijioa bera da sarritan gaizkintzak eta inpiokeriak eragin dituena. Xabier Amuriza

Adierazgarria zen, ustez, urtez urteko bilakaera, eta lanez laneko hurrenkera berezkoak ere ez dio, **aitzitik** baizik, inolako kalterik egiten bildumari. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aitzitik baizik (7); **aitzitik ere** (17); **bai aitzitik** (3); **baina aitzitik** (8); **da aitzitik** (4); **edo aitzitik** (4); **eta aitzitik** (10); **izaten da aitzitik** (3)

---

aitzur **1** *iz* lurra lantzeko eta harrotzeko lanabesa, maizenik zurezko gider batez eta hari zeharka loturiko burdinazko xafla lau eta ahodun batez osatua.

Aitzur baten zurezko kirten puskatua eta bota baten zola nabarmentzen ziren beste guztiaren gainetik. Jose Morales

Berdabiok ez daki -nola jakingo du, kartzelan egon baita- urteko egunak adina zulo egin dituela Trabukok - **aitzur** eta pala, izerdi eta neke, madarikazio eta behazun-ahuntzen larreetan. Anjel Lertxundi

Landatu ditugu pagoak: **aitzur** batekin behar zen zilo bat egin, arboltxoa ezarri eta lurra tapatu zangoekin. Herria

Zenbait jende plazara agertu ziren **aitzur**, igitai, dailu eta sardeak ekarriz erasoari buru egiteko asmoz. Elena Touyarou

Pala eta **aitzurra** eman zizkioten lan tresna gisa. Eneko Bidegain

Berak, komunetik irteteko bidea utzi, eta atzetik jarraitu ninduen orduan ere, **aitzurra** eskuan zuela. Ramon Saizarbitoria

Berdabioko jaunaren lurretan ahuntzak ibiltzen diren larre inguruetanGogoan daukat zulaka aritutakoetarik batek **aitzurra** haserre jaurti eta "Ez zenuten zuhariari zertan deitu! Anjel Lertxundi

Landetarik zetozen mutil eta langileek hor zituzten laneko tresnak plegatzen, sasoien arabera igitaiak ala **aitzurrak**. Berria - Kultura

Ez da dudarik aroztegi onak bazirela, kanoiak eta ezkilak egiten zirenaz gain, bai eta ere **aitzurrak**, aizkorak, goldenabarrak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aitzurraren kirtena irristatuz joan zitzaion eskutik hitz egiten nion bitartean. Ramon Saizarbitoria

Lurra **aitzurrez** eta eskuarez behin eta berriz landu ostean. Oskar Arana

Dirudienez, Flora hilarria hautsi nahian **aitzurrarekin** kolpeka hasi omen zen, zoro baten moduan "fuera, fuera" oihuka. Ramon Saizarbitoria

Arto jorran denak **aitzurrekin** lerroan genbiltzala . Pello Salaburu

2 (izenondoekin)

Ahurrak lerratzen zitzaizkien **aitzur** eta pala arinen giderretan. Itxaro Borda

Berez, San Lazaro gurutzea da, baina XVI. mendeaz geroztik "Cruz de los Azadones" izenarekin da ezaguna, **aitzur** luzeen edo hondea aitzurren gurutzea, alegia. Martin Anso

3 (hitz elkartuetan)

Gero, sekulako kolpea ematen zion **aitzur**-buruaz lur harrotu berriari .Aitak **aitzur**-lanarekin jarraitu zuen burua altxatu ere egin gabe. Anjel Lertxundi

Ia egun osoa ematen zuen **aitzur** lanean lastozko kapelu handi bat jantzita. Ramon Saizarbitoria

Aitzur kolpeaz behereko zureko kutxaren tapakia hautsi zuen. Itxaro Borda

Holako euriteak direlarik nor berak **aitzur** ukaldi bat emaiten ahal du, denen onetan! Herria

Aitzur eta pala ukaldien harramantzak aditzen ziren berriz. Itxaro Borda

Aitzur ukaldika harrotzen zuten lurra eta lohi puloak bazterrean metatzen. Itxaro Borda

4 irud/hed

Berehalaxe hasi zen kontu handiz bizarra mozten nikelezko **aitzur** berriaz. Lopez de Arana

Normala ere bada, horiexek baitira nire lanabesak, nire **aitzur** eta soroak, aldi berean. Xabier Mendiguren Elizegi

5 *adkor* mozkorraldia.

-Mac, benetan esaten diat, ez diat **aitzurrik** harrapatu nire ezkontza-egunetik. Lopez de Arana

Berak dio **aitzur** gehiegi harrapatzen ditudala. Lopez de Arana

Beste bazter batzuetan, bizarra mozteko **aitzur**-orri erabiliak ageri ziren, futbol-apustuen txarteltxoak, Mutualitateko inprimakiak, postalak. Juan Garzia

Herfy, kriston **aitzurra** zaukaat. Lopez de Arana

Aitzur ederra harrapatzeko gogo izugarria dut. Patxi Zubizarreta

Seguru putetan ibilitakoa zela Cortesetan, eta **aitzur** galanta harrapatuta zetorrela. Javi Cillero

6 ***aitzur begi*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Tresnetan Aizkora begi, **aitzur begi**, arma begi, oinetakoen begiak (begiteak), ontzi begiak Oihalek ere oihal begiak dituzte (gazt. cordonillo, fr. cordonnet) Orratzak ere badu orratz begia. ETC-literatura, saiakera

7 ***aitzur-buru***

Noizbait, satorren baten mugimendua antzemanik, aitzurra jasotzen zuen poliki-poliki; gero, sekulako kolpea ematen zion **aitzur-buruaz** lur harrotu berriari, eta sator bat hiltzea lortzen zuenean, animalia triste bat hil izanak ezin justifika zezakeen poz gehiegizko batek hartzen zuen aita, eta aupa!, aupa!, egiten zuen oihu, aitzurra zerurantz jasota. Anjel Lertxundi

Hitz haiek entzun orduko, aita imajinatu nuen nik, aitzurra jasota eta adi-adi, satorra **aitzur-buruaz** jotzeko lorategiko lurra mugitzen ikusitakoan. Anjel Lertxundi

8 ***aitzur luze***

Berez, San Lazaro gurutzea da, baina XVI. mendeaz geroztik "Cruz de los Azadones" izenarekin da ezaguna, **aitzur luzeen** edo hondea aitzurren gurutzea, alegia. Martin Anso

9 ***aitzurrean*** *adlag* aitzurrarekin lanean.

Adanek **aitzurrean** jardun zuela. Juan Garzia

Gero, baratzean, piperren gaineko lur gogorrean **aitzurrean** ari zela, berriro aditu zuen. Anton Garikano

Ez zidan erantzun; **aitzurrean** jarraitu zuen, amorruz. Ramon Saizarbitoria

Bere soroan **aitzurrean** ari zen nekazari baten ondotik pasatzean, bat-batean gelditu, eta oihu egin zion: "Ez hainbeste altxatu besoa; nekatu egiten nauzu!". Jon Muñoz

10 ***aitzurrean egin***

Gizon hura hartu eta **aitzurrean egin** zitekeen lorategian. Koro Navarro

11 ***bizar-aitzur***

Lehenbizikoan, lan kontuez bakarrik ("naptilamina"ren dosiaz, hain zuzen); bigarren aldian galdetu zidan ea zergatik nuen bizarra hain luzea, eta nik erantzun nion gutariko inork ez zuela **bizar-aitzurrik**, ez eta -okerrago baitzen- musuzapirik ere, eta astelehenero mozten zitzaigula araudiz bizarra. Juan Garzia

12 ***hondea-aitzur***

Berez, San Lazaro gurutzea da, baina XVI. mendeaz geroztik "Cruz de los Azadones" izenarekin da ezaguna, aitzur luzeen edo **hondea** aitzurren gurutzea, alegia. Martin Anso

13 ***ukuilu-aitzur*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Handik urtebetera edo bira, Extremadura aldean zegoen, eta han, nik dakidanez, guraso batek **ukuilu-aitzurrarekin** jota akabatu zuen. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitzur eta (9); **aitzur eta pala** (4); **aitzurra eskuan** (5); **aitzurra eskuan zuela** (3); **aitzurra eta** (5); **aitzurra eta pala** (3); **aitzurrean ari** (4); **aitzurrean ari zen** (3); **aitzurrean jarraitu** (3); **aitzurrean jarraitu zuen** (3); **eta aitzur** (3); **eta aitzurrak** (4); **eta aitzurrean** (3); **zuen aitzur** (3)

---

aitzurdin *iz* marmola.

San Martin egunean bertan hobiratu zuten William Graeme etxeko lorategian, jauregiko hil-kapera ilun, dotore eta **aitzurdin** garestiko batean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aitzurdinez egina dago dena, eta ganberaren erdi-erdian ba omen zen, lehen, Paumaren Tronua (Peacock Throne) deitutako bat, Persiako Nadir Shak Delhiko mogolen erresuma suntsitu zuenean (1739) Iranera eramana. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gotorleku Gorria, gaztelu eta gotorleku izateaz gain, mogolen gobernua babesteko eta zaintzeko eraikuntza zen: audientzietarako gelak, gobernarientzako bizilekuak, administrazio eta gobernu-lanetarako bulegoak, **aitzurdinezko** jauregiak, kupulaz estalitako ganberak, arku ederreko atariak, munduko edertasunik handieneko lorategiak... J.M. Olaizola "Txiliku"

---

aitzurka *adlag* aitzurrean.

Arkeologoak,antropologoak, etnologoak hor saiatzen dira gure memoria bertikalean **aitzurka** perforazio gero eta sakonagoak egiten, gure sustraien edo gure lehen hezurren bila. Berria - Kultura

Aitzurka jarraitu zuten, mahastia jorratzen, hostoak bekandatzen eta mihimen multzoak gerrian zintzilik, abarrak alanbreari estekatzen. Itxaro Borda

Eta orduan zulogileak hasi ziren **aitzurka**. Joseba Sarrionandia

---

aitzurkada *iz* aitzur kolpea.

Lanari jarraitzen dio, baina minak, zer gizona!, min zorrotzak ez dio hirugarren **aitzurkada** bat ematen uzten. Pako Aristi

Aitzurkada batez burua txikitu nioan. Lopez de Arana

Ohartu ere gabe hartu bat eta ahora eraman nuen, eta hobia zulatzen ari ziren hobigileen **aitzurkadak** entzuten nituen bide barrenetik. Josu Zabaleta

---

aitzurkadaka *iz* aitzur kolpeka.

Garai hartan, ohikoa zen katutxo jaioberriak hiltzea, eta agian Joxe Marik modurik txukunena erabili zuen hartarako, ezen eskolako mutiko nagusietako batzuek katutxoak zakuan sartu eta **aitzurkadaka** hiltzen zituzten zakuan bertan, eta ondoren lurperatu; horixe zen metodorik onena, ziotenez. Juan Kruz Igerabide

---

aitzurkari *iz* aitzurlaria.

Gertatu honen oharretan daukan estilo kolperik onena **aitzurkari** haietako baten esana emanik lortzen du, katabut bat soberan zela ikusitakoan etxera eramaten utziko ziotenetz galdegin omen zuen. Koldo Izagirre

Furgoneta bat heldu zen udalak igorritako apairuarekin, eta **aitzurkariek** izeien gerizpera hartu zuten. Koldo Izagirre

Metro t'erdiz barnera zeuden, **aitzurkariek** uste zutena baino sakonago, lehen zulaketa egina zutenetik ez oso urrun. Koldo Izagirre

---

aitzurketa **1** *iz* aitzurrean egitea, aitzurtzeko lana.

Eta adierazi, hain zuzen ere, ordoki lohi bat zeharkatzen ari ginelarik, non begiztatu ahal izan baikenituen gizairudi gogoangarriak eta **aitzurketa** axolagabean ziharduten aurpegi luzangak. Karlos Linazasoro

2 ***aitzurketan aritu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Kasualitatez aurkituko zuen **aitzurketan ari** zela? ETC-literatura, saiakera

Deabruak harentzat propio lurpean ezkutatu zuen, eta egun batez, baratzean **aitzurketan ari** zela, Dometiosek aurkitu. ETC-literatura, saiakera

---

aitzurketan *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* *iz* aitzur lanean.

Kasualitatez aurkituko zuen **aitzurketan** ari zela? ETC-literatura, saiakera

Ordubete eman genuen **aitzurketan**, baina lurra oso gogorra zen. ETC-literatura, saiakera

Deabruak harentzat propio lurpean ezkutatu zuen, eta egun batez, baratzean **aitzurketan** ari zela, Dometiosek aurkitu. ETC-literatura, saiakera

Elkartekoek diotenez, badira bakan batzuk baratzeotan **aitzurketan** ikasi eta ofizioan trebatu ondoren gaur laborari lanetan beste nonbait kokatu direnak. ETC-prentsa

---

aitzurlari *iz* aitzurrean aritzen dena, nekazaria. ik **aitzurkari**.

Kontuan har ezazue gerra hau irabazten ez badugu Portugal finituko dela hasi aitzin, eta etorkizun dauden hainbat errege ezingo direla portugaldarrak izan, eta berdin hainbat lehendakari, hainbat militar, santu eta poeta, ministro eta **aitzurlari**, gotzain eta marinel, eta artista, eta langile, eta bulegari, eta fraide, eta zuzendari, gizonezkoak izan edo emakumezkoak izan. Jon Alonso

Ni ez naiz-eta jauregitarra, **aitzurlari** baten alaba gaixo bat baizik eta ezkutari ibiltari baten emaztea, eta ez gobernadore batena. Patxi Ezkiaga

Aitzurlari batek eta zuk janari kantitate berbera behar baduzue ere, **aitzurlariaren** gosea ez da zure gosea bezalakoa. Koldo Biguri

---

aitzurrotx *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* hortz anitzeko aitzurra.

Neska bat gauaz atera zen **aitzurrotxaren** bila. ETC-prentsa

Honela dio istorioak: neska gazte bat, baserri handi batean neskamea dela, gau ilunean ateratzea onartzen du (diruagatik, gainera) erreminta baten bila (eskuare bat, edo are zehatzago **aitzurrotx** bat). ETC-entziklopedia

---

aitzurtu, aitzur(tu), aitzurtzen **1** aitzurrez landu.

Nahikoa azaldurik gelditu da Amabirjinak agindu ziola hantxe zulo egiteko aitzurrarekin, gure ustez berak bere eskuez zulo egiteko, alegia, eta hara bestea, zer egingo, eta, besteri agindua eman **aitzur** zezaten. Jon Alonso

Eguraldia aldatu zuenean belauniko jarri ziren atzeko atarian, **aitzurtzeko** gogorregia zegoen lurrean baratzea diseinatzeko. Anton Garikano

2 ***azal aitzurtu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Erabiltzen dugun beste teknika bat ereite faltsua da: lurra landu eta ureztatu, bertan gordeta dauden milaka haziek ernetzeko aukera izan dezaten, eta ernetzen direnean, jorratu edo **azal-aitzurtu** egiten da lurra. ETC-prentsa

---

aitzurtzaile *iz* aitzurlaria, nekazaria.

Aitoren seme zaharrik ez duk, baratzezain, **aitzurtzaile**, eta hobigileak adinakorik. Juan Garzia

---

aiui *iz* oihua, garrasia.

Norbaitek atera zituen soinuak zeuden lotsazko gordelekutik, eta lau haizetara zabaldu ditu bere hauspoetatik sortzen diren **aiuiak**; gure herri txikiak zeukan garatu behar eroaren ondorioz hildako guztiei, ez Palermo itsasontzikoei bakarrik, baizik guzti-guztiei barre egin diegu. Pako Aristi

---

aiuika *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* oihu eginez, garrasi eginez.

Ikatz-denda barrenean, Otellok kexaka entzuten dio, zakur baten antzera **aiuika**. ETC-literatura, saiakera

---

aiuma *iz* intziria, aienea, zinkurina.

Aiuma eta aieneak entzuten diren gelako atea bultzatu, eta hantxe ikusten ditu ohe gainean etzanda, Xabi eta Ritxi, Txetxu erdian dutela, denak erdi biluzik, besarkada eta laztanetan bihurriturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Beharbada eszenografiarik gabeko heriotzak, **aiuma** eta tiro hotsik gabekoak, aztertzen hasi beharko zenukete zuek ere -bota nion. Joxean Agirre

Pixka batera, errukia erakusten zuen **aiuma** negartia atera zuen, herrenka urruntzen ari zen txakurrari hanka bendatuta ikusi zionean. Joxemari Urteaga

San Jose inguruan jaio diren arkume jostarinak pendizean behera piririkan ikustea zerbait berria da arditzar geldien ondoan; haien ipursalto eroak eta **aiuma** ikarazkoak mugimendu berriak dira naturaren baitan. Pako Aristi

Tiro bat nahikoa izan zen, azken **aiuma** ateratzeko denborarik ere eman gabe. Joxemari Urteaga

Batzuetan mingain puntarekin han-hemenka kilimak egiten nizkion iratzar zedin baina alferrik izaten zen, kexu edo plazer **aiuma** txikiren batzuk egin eta lo jarraitzen zuen. Joxean Agirre

Kalean lo egitea bezala zen, eta **aiumak**, negarrak eta oihuak entzuten ziren nonahi, eta ni kalerantz begira nengoen, eta ezin nuen sinetsi paretarik ez egotea. Mikel Hernandez Abaitua

Zerbait entzun ustean, geldi geratu zen Freddy Green, eta, ia une berean, txakurraren **aiumak** entzun zituen. Joxemari Urteaga

---

aiumaka *adlag* intzirika.

Neskaren bular ilunek esne irakinaren usaina zuten, Ai **aiumaka** hasi zen berehala, zaldi gainean trostan doana bezala mugituz eta ai **aiumaka**. Joseba Sarrionandia

Urduri jarri zen Freddy Green, aztoratu ere bai une batez, txakur zauritua **aiumaka** hasi zenean berriro. Joxemari Urteaga

Txakurra **aiumaka** entzuten zuen, beste eraso baterako prestatzen ari balitz bezala. Iñaki Mendiguren

Zaunka ere egiteko indarrik gabe, herrenka eta **aiumaka** agertu zitzaion txakurra. Joxemari Urteaga

---

aiuntamentu *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi) iz* udala; udaletxea.

Eta besteak iritsi zirenean, ez nuen erabakitzen lan handirik izan, handik gutxira bainuen etxean Donostiako **aiuntamentutik** bidalitako gaztigua, halako egunetan eta halako ordutan bertara presentatzeko, kinta tiratu zutela eta. ETC-literatura, saiakera

Gobernadorearekin solasteko edo zernahitarako behar baduzue, **Aiuntamentua** zuekin joanen da! ETC-literatura, saiakera

Aiako **Aiuntamentuan** bat; Aiako taberna guzietan ere bai. ETC-prentsa

Badaezpada, **Aiuntamentua** eskuin aldera utziz, Zamudioren terrazarantz zuzentzen ditut pausoak. ETC-prentsa

Abbadiak dirua jartzen zuen, baina organizatu, mezenasaren iradokizunak kontuan hartuta, udal administrazioek organizatzen zuten, horregatik programak **aiuntamentuen** dokumentu ofizialak dira, herriko etxeek aterata. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aiurbediko *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* **1** *izond* Indiako tradiziozko medikuntzari dagokiona.

Pierre Bongiovanni artista paristarrak masaje **aiurbedikoak** eman ditu aste honetan Gasteizen Amarica egitasmoak antolaturiko Soft Power ekitaldietan, eta performance horren gaineko azalpenak emateko agerraldia eskatu dio PPko batzarkide Marta Alañak Lorena Lopez de Lacalle kultura diputatuari. ETC-prentsa

2 ***medikuntza aiurbediko*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

2004an Osasun-etxea egin zuten, laborategia eta Indian jatorria duen **medikuntza aiurbedikorako** etxea, hain zuzen ere. ETC-prentsa

VII. mendean Sushruta sendagile hinduak (argazkian) **medikuntza aiurbedikoari** buruzko tratatu bat idatzi zuen eta hor jaso zuen anputatutako sudurrak -ohiko zigorra garai eta lurralde haietan- berregiteko metodoa: kopetako azala transplantatu behar omen zen. ETC-prentsa

Ayurveda edo **medikuntza aiurbedikoa** Indiako tradiziozko medikuntza da. Jatorriz Indiakoa izan arren, gero eta famatuagoa da Mendebalean. ETC-entziklopedia

---

aiurri *iz* pertsona baten izaera, bizitzan eta gainerako pertsonen aurrean aritzeko moduari dagokionez.

Pedro haren ondorengoa zen adinez, eta axolagabekeria filosofikoaren eta **aiurri** onaren irudi jatorra zen. Josu Zabaleta

Hasieran, haren **aiurri** atseginak erakarri ninduen; lagun aparta izan zitekeela iruditu zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

Nire gurasoak bi pertsona desberdin zituan, **aiurri** desberdinekoak, bizi erritmo desberdinekoak, nire ama ere "desberdina" baitzen, hi bezala, Krisztina bezala. Xabier Olarra

Ezkontideen arteko izate eta **aiurri** bateraezintasuna alegatzeak benetako eta bestelako arrazoiak estal ditzake eta horiek jendaurrean eztabaidatzea, familien lotsaria eta gizartearen eskandalua litzateke. Andres Urrutia

Aiurri berezia, zapuzkeria, agian haurtzaro hitsa izan zuen, baina berak ez du ezertxo esan nahi, hasieratik erakutsi du psikiatrarentzat zentzugabeko amorrua, neu goxo hitz egiten saiatu arren. Gotzon Garate

Oso **aiurri** biziko moja da hau, airean ibiltzen ditu preso laguntzaileak. Koldo Izagirre

· *hed* Herrien **aiurri** diferenteak, esperientziazko behaketaren irakaskuntza arruntak, arazorik gabe aitortzen ditu. Joxe Azurmendi

Ikertu baino gehiago asmatu egin den **aiurri** edo izpiritu nazional hori, batetik, eraikuntza aprioriko, metafisikoa da, erreferenzia historikoak hura beztitzeko trapuak bakarrik direla; metafisiko bezala, izpiritu horrek prehistoriatik hona bere horretan dirau, beti berdin, aldaezin. Joxe Azurmendi

Herrien Psikologia nazional hau, bere aurretiazkoetan artifizialki unitario den legez (**aiurri** edo arima espainola hau eta hori da), ondorioetan erraz bihurtzen da politikoki unitarista (espainol onak hau eta hori izan behar du; edo, kasuan, euskaldun onak). Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta aiurri** (7); **izate eta aiurri** (4)

---

aiuta *iz* laguntza.

Ehuntzaroko lepora hurbiltzian, zer **aiuta** ! Bi karabinero gertatzen zizkietxu batbatian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

aiutu *izond* egokia.

Zeinen noblea arrazoimenez, zeinen infinitua gaitasunez; formaz eta mugimenduz zeinen **aiutua** eta miresgarria; ekintzaz zeinen aingeru-halakoa; ulermenez zeinen jainko-gisakoa. Juan Garzia

Ekar dezadan Joxerra Garziaren gezi bat, egonean doazen horietako bat, **aiutuena** : [...]. Iñigo Aranbarri

---

aixkide ik **adiskide**.

---

aixkol *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi) iz* belar landare lekadun birakaria *(Lathyrus sativus)*.

Aixkola ("Lathyrus sativus") Lekadun Fabaceae familiako landare belarkara eta birakaria da. Asian du jatorria, eta Indian lantzen da duela 4.000 urtetik hona. ETC-entziklopedia

Latirismoa **aixkolen** edo horien deribatuen gehiegizko kontsumoak eragindako intoxikazio kronikoa da, leguminoso horretan substantzia toxiko batzuk -zenbait aminoazido-daudelako, batez ere nerbio-sistemari eragiten diotenak. ETC-entziklopedia

Konposatu latirogenoak: substantzia hauek aminoazido batzuk dira eta Lathyrus sativus (**aixkol**) eta Vicia generoko lekaleetan daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

"Arakis" hau **aixkol** edo ilar bat (Lathyrus amphicarpus) izendatzeko izena dute Mediterraneo urrun hartan. ETC-prentsa

Lathyrus sativus eta Lathyrus cicera, **aixkolen** aihentxo kiribiletan kateatuta ibili gara duela aste pare bat edo... ETC-prentsa

---

aixolbe *ipar iz* babesa.

Hondarrean, zakur galdu baten zaunkak elearen amets arotik iratzarrarazi gintuen eta elizako zeinuek bi kolpe tinko jo zituzten: itzultzea erabaki genuen, zeinek bere **aixolbe** urrunetara. Itxaro Borda

Berdin zitzaidan, Parisko Berdeko jujea, Colombo, FBI eta CIA, Washingtoneko Scully eta Mulder, Tator, Tagart eta Berlin ekialdeko Derrick inspektoreak nahiz Moskuko Stalinen simulakrea bidaltzen ahal zizkidan, ezen laster Kattinaren besoen **aixolbean** izanen bainintzen. Itxaro Borda

Yunel luzeen **aixolbean** gerizatu ondoan. Itxaro Borda

Hangarraren **aixolbean**. Itxaro Borda

Bagoiaren **aixolbean** kokatu nintzen, Lili Marlenen gorputzaren harpeen magalean bezala. Itxaro Borda

Seguritatea eta intimitatea zaintzearren, bakoitzak hirian zehar zeukan sator-zuloetara lehiatu ziren menturaz: Jules, Grenet zubipeko **aixolbera**, Kastela Baiona Txikian zetxikan ate-itzalera, eta Philippe inork ez zekien nondik baina giltza bazeukan hiriko lurpeetan dauden soto misteriotsu haietariko batera. Itxaro Borda

Semerik kuttunenaren **aixolbean** zegoen eta ez zezakeen, bai durduzatia salbu, hitz izpirik ahoska. Itxaro Borda

Thierryren taldearen **aixolbera** jaitsi aitzin, gauez, banku publikoetan lo zegoela, makuluak ebasten zizkioten. Itxaro Borda

Aspaldiko ene (bizi) bideetan eredu daukadan Simone Weil (1909-1943) idazlearen eleen umilitate jakintsuaren **aixolbetik** abiatu naiz ipuin hauek idazterakoan. Itxaro Borda

---

aixolbetu, aixolbe(tu), aixolbetzen du *ad* babestu.

Zernahi gisaz orduan, Ikerrek aski karba eginik eman zion Edmeak Ternua ustezko mendizalea selauruan **aixolbetzeko** baimena. Itxaro Borda

---

aixtur ik **aiztur**.

---

aizak *(ETCn **1.289** agerraldi; orobat **adizak** ETCn **20** agerraldi) interj* esandakoaren indargarri edo arreta eskatzeko erabiltzen den hitza. ik **aizu**[1], **aizan**, **aizak**; **aditu**[1]; **ei**[2]; **e**.

-Aizak, hi! -esan zion Pepponek. Koldo Biguri

Baina, **aizak**, hau guztia alde batera utzita, zer deritzok bide hori egiteari? Joan Mari Irigoien

Eta, **aizak** hi Santxo, nik gutxi ikusten diat edota bestela, han ageri den itzal handi hura, Dulzinearen jauregiak egiten duena duk noski. Patxi Ezkiaga

-Aizak, hau ez duk txantxetako gauza. Iñaki Iñurrieta

-Aizak, Dutertre, gaur gauean... Josu Zabaleta

Aizak, eiteziyon arek, beste botoibat, esate ziyon, jarri bearko iyoke, esan diyo geoxio, ire zamarrote orri, eta ala bukatu da kontuba. Xabier Olarra

-Aizak, Jito, etzakela presarik izan! Pello Lizarralde

"**Aizak**, agure mainontzi, bertze batekoz goraintzi. Anjel Lertxundi

Esan nion: **aizak**, nahikoa duk, lasaitu hadi, eta azkenean jaramon egin zidan. Urtzi Urrutikoetxea

Gora egin diat bide zaharretik, gora egin diat, **aizak**! Pablo Sastre

Baina ez, **aizak**, ez duk bidezkoa, sutan jartzeko modukoa duk burges demontreek hau guztia jatea! Karlos Zabala

Eta ni, berriz, gizendu egin nauk, **aizak**! Karlos Zabala

- **Aizak**, Pataki, galdera bat. Harkaitz Cano

Aizak -adi begiratu zion, sekulako aurkikuntza egin izan balu bezala-, zergatik ez haiz Mirenen hilketa argitzen saiatzen -iradoki zion. Migel Angel Mintegi

Aizak, Tommo -esan zuen Charliek, bere eskua nire beso gainean jarrita-, konturatu ere egiterako itzuliko nauk. Mirentxu Larrañaga

Behin baino gehiagotan sortuko zitzaigun galdera hau egiteko gogoa: "**Aizak**!". Pedro Alberdi

Gauza bat esan behar diat, **aizak**, adiskide: zoritxarrekoa izaten errazagoa zegok zorionekoa izaten baino; eta nik, badakik, ez diat bide erraza aukeratzen duen jendea maite, ez ditiat mainontziak gogoko! Jesus Mari Mendizabal

-Aizak, nork daki ze pasa zen etxe horretan? Anton Garikano

---

aizan *(ETCn **829** agerraldi; orobat **adizan** ETCn **5** agerraldi) interj* esandakoaren indargarri edo arreta eskatzeko erabiltzen den hitza. ik **aizu**[1], **aizak**, **aizue**; **aditu**[1]; **ei**[2]; **e**.

- **Aizan**, nola utzi dun lana horrela? Koldo Izagirre

Salmahaiaren kontua dun, **aizan**. Karlos Zabala

Aizan, hik ez dun ezagutuko Shaw izeneko inor? Xabier Paya

Eta, anartean, amari esaten zion: "**Aizan**, hi, ergela, **aizan** zer polita den hau". Fernando Rey

Aizan, Amaia, buelta hartzea ba al daukan? Fernando Morillo

Primeran, **aizan**. Fernando Morillo

-Aizan, esna al haiz? Ibon Uribarri

-Aizan -gauzak argitu beharra sentitu zuen Nano Zuriak-, egia esaten badinat, niri ile-kirrua gustatzen zaidan gehien. Patxi Iturritegi

Aizan, baina ez dun hori eman dinadan berri bakarra, presta hadi: Patxi ezkondu egiten zaigun! Patxi Zubizarreta

Aizan, entzuten al didan! Jon Muñoz

- **Aizan**, Ane... zera... zelan esango dinat... Unai Iturriaga

-Aizan, bihar amaren etxeko belarra moztu behar dinat, eta biak joan gaitezken. Joan Mari Irigoien

-Aizan, entzundakoa. Anjel Lertxundi

-Aizan -berdindu du bere hizkera. Aingeru Epaltza

-Aizan, ni ni naun, eta utzi bakean, emakumea! Joan Mari Irigoien

Aizan, bizirik irtengo al naiz? -kamusada ezkutatzen saiatu zen. Migel Angel Mintegi

-Aizan, Ester! -oihu egin zion Mikelek bertako alabari. Pedro Alberdi

Aizan: Ez dun kaferik izango? Pablo Sastre

---

aizarnatar *izlag/iz* Aizarnakoa, Aizarnari dagokiona; Aizarnako biztanlea.

Aizarnatarrek betidanik ezagutzen dute erreka hori, eta Erniokoaren berri izan zutenean, lagin bat bidali zuten Aranzadira, zer zen jakiteko. Berria - Gaiak

---

aizarnazabaldar *izlag* Aizarnazabalekoa, Aizarnazabali dagokiona; Aizarnabaleko biztanlea.

40 urteko **aizarnazabaldar** gizasemearen gorpua aurkitu zuen atzo goizean inguruko nekazari batek Angiozarko hilerriaren atarian", zioten gutxi gorabehera, gaztelaniaz. Juan Luis Zabala

aizaro *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi) iz* ilunpea.

Aizaroaren sakonetik bolanderen argi-arrosak sortzen ziren. ETC-literatura, saiakera

Une batez, aurrez aurre egon ziren, bi uharte bero **aizaroen** itsaso hotzean; itxaron, eta lasaitu egin ziren. ETC-literatura, saiakera

Aita hil zenean, baina, zoriontasuna joan egin zen, Maite, katua **aizarora** bezala. ETC-literatura, saiakera

---

aizarotsu *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* ilunpetsua.

Hiztegian begiratu gabe ere ulertzen da zigor-ziega leku **aizarotsu**, ospel eta ainubea dela esanez gero. ETC-literatura, saiakera

Jakituria dago iraul gaitzaketen situazioak saihestean, ufa egiten duten haizeak ahal bezain trebeki erabiltzean, horrela gutxienez geure aldian iraun dezagun, iraganeko herentzia preserbatu, eta ez presaka joan behar bezain laster etorriko ez den etorkizunerantz, presente **aizarotsua** bera baino ere ilunagoa izan daitekeen horretarantz. ETC-literatura, saiakera

Ez dakit antolatzaileek nahita paratu ote duten argi falta edota akats hutsa ote den, nahiz ni, nire motzean, bigarrenean egon, baina norberak antzematen ez dion zama kulturalari lepora dakioke sentsazioa zeren, gure ohituren aldean, Europako hiriburuko kaleetan ez da ezer entzuten, ezta asko ikusten ere, horren da isila eta **aizarotsua** giroa. ETC-prentsa

---

aize ik **haize**.

---

aizina *ipar iz* aisia, astia; aukera.

Zer parada edo okasione pollita etxetik ateratzeko, bezperan bezala, baina **aizina** edo asti gehiagorekin, eta adiskideekin solastatzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bainan bertzenaz orori mintzo gare; zerbait dakiten, eta, apezek bezala, astia edo **aizina** dutelarik Eskualherriaren etorkizunaz eta Eskuararen aipamenaz den gutieneko axolarik duten guzieri. Xipri Arbelbide

Lauzpabost hilabete eri egonik, eritasun ondoko pausuak bainituen, **aizina** banuen kanpalekuan ibiltzeko, ez bakarrik tallurgoaren ondotik, baizik ene lagunen eta adiskideen ikusteko ere. Marzel Etxehandi

Baduk beraz oraino **aizina**. Janbattitt Dirassar

Pasaporteek eta beste paper mota guziek **aizina** zuten armairu zokoan egoiteko zenbait urtez... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

aizinaldi *iz* aisialdia.

Berritasun bat sasoikoa: adineko jendearen gida, erretreta etxeak, aterbe egiturak eta **aizinaldiak** ongi ekarriak dira. Herria

Baionako hiriak 75.000 euro gastatuak ditu **aizinaldi** horiek urririk eskaintzeko, Ticket-Sport sistema abiatuz geroztik duela hamabost urte. Herria

Haurra osoki sartua da euskarazko erakaskuntzan, klasean baina ere kanpoko aire hartze eta **aizinaldietan**, kiroletan eta kantuan. Herria

---

aizinatu *izond ipar* astia duena.

Ni baino zaharragoa zen, lan bortitzetatik salbu **aizinatua** zen eta elgarren ikustera joaiten ginen. Marzel Etxehandi

Haatik, luzaz eta luzaz, nor ziren udatiarrak? Aski **aizinatuak** ziren jende aberatsak, gisa hartako gogoa zuten ber. Herria

Baxe-Nabarreko musika festibala, gasna-feria Atharratzen, kontrabandixteen lasterraldia Saran, pilota partida ala behi-laster, hilabete guzia alde bat bestaz-besta ibiltzeko moldea jende **aizinatuarentzat** segurik. Herria

Joanden egunean konparazione jakin da Baionan, Batasuna alderdiaren biltokian batere funtsik gabe atxeman dituztela halako beharri luze batzu nolazpait gordeak, norbaitek bere gostuko segurik aski polliki ixilka ezarriak alegia eta deusez biltzeko horko solas guziak! Badirela jende **aizinatuak** eta atrebituak, beren ustez biziki abilak! Herria

---

aiziriztar *izond* Aizirizkoa, Aizirizko biztanlea.

Beñat Laxague **aiziriztarrak** lekukotasun argi bat hel-arazi dauku konpostelarateko beila horietaz. Herria

Huts hau barka iezaigutela bai Beñat Laxague **aiziriztarrak** bai Jean Louis Harignordoquy bertsulariak. Herria

---

aizkatu, aizka, aizkatzen du *ad* uxatu, aienatu.

Eta egokia izango al da ate joka hastea, entzun eta ireki diezaguten, jende guztia **aizkatu** eta zarataka jarriz? Patxi Ezkiaga

-Estagua izandako parajetik harago **aizkatu** beharra dago Enmedioko ganadua, eta Estaguakoa, berriz, Vimayoko muinoetarantz lerra ezazue -agintzen zien Fulgor Sedanok haiek irten ahala. Juan Garzia

---

aizkolapustu *iz* aizkora apustua. ik **aizkora 4**.

Berriz, objetiboki, leitu duzue inoiz gure Herriaren izena **aizkolapustu** edo ihauteritako ez bada? Pablo Sastre

---

aizkolari *iz* aizkoraz lan egiten duen pertsona; eskuarki, aizkora jokoan lehiatzen dena.

Kirolak ere hor ziren, Amikuzen eta Garazin egiten ohi diren bezala: **aizkolari**, segalari, sokatira, zaku lasterka eta beste. Herria

Zirujauari, berriz, **aizkolari** baten antza hartu zion hasieratik. Imanol Zurutuza

Bazen behin **aizkolari** bat, sasoiz eta indarrez beti txapeldun behar zukeena, baina hau dela edo hura dela, ia beti huts egiten zuena. Joxerra Garzia

Baina aizkorak uste ote du **aizkolaria** baino handiago denik? Trontzeak uste ote du trontzalaria baino gehiago denik? Ez du zigorrak erabiltzen zigorduna! Elizen arteko biblia

Aberezainak eta **aizkolariak** etxola batzuetan bizi ziren, baina ez zuten harriz egitea haizu. Michel Oronoz

Seigarren tronkoan doa oraindik, eta **aizkolariak** tronko horretan presa besterik ez du sentitzen, presa ero bat, askotan, bere burua gehiegi behartzera daraman presa itsua, eta ez du ondo neurtzen gelditzen zaion energia, gero beharko duen indarra! Pako Aristi

Zoriona droga gogorra da gorputzarentzat, hasierako dosietara gorputza ohitu egiten da, eta hurrena gehiago behar du, eta hurrena askoz ere gehiago, hasiera batean hain modu atseginez liluratu gintuen zorion mailara iristeko, eta hor hasten da zorabioa, itomena, **aizkolariaren** itsumena! Pako Aristi

Aizkolariaren sindromea sartuko zait koadrodun alkandora honekin. Harkaitz Cano

Xapelgo frango antolatzen dira eskuin eta ezker, hala nola **aizkolarien** Nafarroako bi-bitako xapelketa, joan den egunean iragan dena. Herria

Ohi bezala entseguen artean **aizkolariak** ariko dira Hairako oihaneko pago trunkoen mozten aizkoraz eta esku zerraz. Herria

Feria egunean, 10etarik 15etara, azokaz gain izanen da orotarik: erakusketak, musika, karrikako antzerki, **aizkolarien** binakako lehiaketa... Herria

Aizkolarien desafioa: Arozpide eta Olazagasti. Herria

Herrikoek gaztigatu zuten **aizkolari** gaztea: ez zedila neska harekin ezkondu esan zioten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gizonek bazuten lan zuhaitz aurtikitzen, sasoina etorria zenean, eta **aizkolari** hautak bilakatzen ziren, beso azkarrekoak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Jose Mari Olasagasti lehenbiziko igeldoar **aizkolari** txapeldunari. Iñigo Aranbarri

Ramon Latasa sunbillar **aizkolaria** ezaguna zuten askok, Iparralde huntan ere. Herria

Nahi izan zuen halabeharrak ni **aizkolari** australiar baten erakustaldian suertatzea, eta ni neu aizkorarekin nahikoa trebea izaki, euskal ebakera erakusteko aitzakiarekin Australiara joan nintzen. Jon Alonso

Aizkolari txapelketarako gertatzen. Iñigo Aranbarri

Santa Ana eguneko ospakizunetan antolatzen zituzten **aizkolari** edo boxeo-borrokaldietan herrira eta abuztuko oporretara ihes egiten zion gogoak. Urtzi Urrutikoeetxea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aizkolari ariko (15); **aizkolari ariko dira** (14); **aizkolari aritu** (7); **aizkolari aritu ziren** (5); **aizkolari bakoitzak** (6); **aizkolari bat** (7); **aizkolari baten** (4); **aizkolari eta** (4); **aizkolari gazte** (4); **aizkolari gazteak** (4); **aizkolari gazteen** (5); **aizkolari handia** (4); **aizkolari horiek** (3); **aizkolari ohia** (5); **aizkolari ona** (3); **aizkolaria bestearen** (3); **aizkolaria bestearen kontra** (3); **aizkolaria da** (7); **aizkolaria dela** (3); **aizkolaria ez** (3); **aizkolaria izango** (5); **aizkolariak ariko** (3); **aizkolariak ariko dira** (3); **aizkolariak enbor** (8); **aizkolariak enbor osoa** (8); **aizkolariak eta** (4); **aizkolariaren itsumena** (4); **aizkolariek eta** (3); **aizkolarien artean** (5); **aizkolarien bi** (3); **aizkolarien lehen** (7); **aizkolarien lehen kanporaketa** (3); **aizkolarien lehia** (6); **aizkolarien lehiaketa** (37); **aizkolarien lehiaketa gurea** (6); **aizkolarien lehiaketa irabazi** (3); **aizkolarien lehiaketak** (5); **aizkolarien lehiaketako** (75); **aizkolarien lehiaketako bi** (3); **aizkolarien lehiaketako final** (3); **aizkolarien lehiaketako finala** (7); **aizkolarien lehiaketako finalerdietara** (3); **aizkolarien lehiaketako hirugarren** (4); **aizkolarien lehiaketako lehen** (5); **aizkolarien lehiaketako ligaxka** (3); **aizkolarien lehiaketako ligaxkara** (4); **aizkolarien lehiaketako sailkapen** (4); **aizkolarien lehiaketan** (19); **aizkolarien lehiaketarako** (3); **aizkolarien lehiaketaren** (4); **aizkolarien lehiako** (9); **aizkolarien lehiako final** (3); **aizkolarien lehian** (9); **aizkolarien txapelketa** (4); **aizkolarien txapelketa gurea** (3); **aizkolarien txapelketako** (9); **aizkolarien txapelketan** (6); **aizkora urrezko aizkolarien** (6); **bakoitzeko aizkolaria** (3); **bakoitzeko aizkolaria bestearen** (3); **bakoitzeko aizkolariak** (9); **bakoitzeko aizkolariak enbor** (8); **banakako urrezko aizkolarien** (70); **berezko aizkolaria** (3); **bi aizkolari** (9); **bi aizkolariak** (6); **biko bakoitzeko aizkolariak** (7); **bikote bakoitzeko aizkolaria** (3); **binakako urrezko aizkolarien** (33); **bitarteko aizkolariak** (3); **bost aizkolari** (3); **buruko urrezko aizkolarien** (4); **da aizkolari** (5); **da aizkolarien** (4); **da urrezko aizkolarien** (8); **dira aizkolariak** (3); **dira urrezko aizkolarien** (4); **donostia urrezko aizkolarien** (6); **du urrezko aizkolarien** (3); **duen aizkolaria** (5); **eta aizkolari** (8); **eta aizkolariak** (3); **eta urrezko aizkolarien** (4); **hamar aizkolari** (3); **handiko aizkolaria** (3); **hiru aizkolari** (8); **hiru aizkolari ariko** (3); **jose vicondoa aizkolari** (3); **lau aizkolari** (8); **lau aizkolari ariko** (3); **lau aizkolarik** (3); **mailako aizkolaria** (3); **sei aizkolari** (6); **sei aizkolarik** (3); **urrezko aizkolaria** (3); **urrezko aizkolariaren** (5); **urrezko aizkolarien** (221); **urrezko aizkolarien bi** (3); **urrezko aizkolarien lehen** (7); **urrezko aizkolarien lehia** (4); **urrezko aizkolarien lehiaketa** (36); **urrezko aizkolarien lehiaketak** (5); **urrezko aizkolarien lehiaketako** (72); **urrezko aizkolarien lehiaketan** (18); **urrezko aizkolarien lehiaketarako** (3); **urrezko aizkolarien lehiaketaren** (4); **urrezko aizkolarien lehiako** (9); **urrezko aizkolarien lehian** (9); **urrezko aizkolarien txapelketa** (4); **urrezko aizkolarien txapelketako** (9); **urrezko aizkolarien txapelketan** (6); **urrezko aizkolarietan** (4); **urte bitarteko aizkolariak** (3); **vicondoa aizkolari** (3); **x aizkolaria** (4)

---

aizkoljoko *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *iz* aizkora jokoa.

Ez naiz ari Kataluniako egoera politikoari buruz, Iker Vicentek eta Xabier Orbegozo Arria V.ak apirilaren 8an jokatuko duten **aizkoljokoari** buruz baizik. ETC-prentsa

Hamar herri kiroletako probak jokatuko dira: sokatira, harri jasotzea, **aizkoljokoa**, zaku lasterketak... ETC-prentsa

---

aizkolketa *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* aizkora lana.

Erreskate lanetan parte hartu zuten horietariko batek, haitzuloan astebete gau eta egun sartu-irtenka ibili zenak, hura guztia buruz gorako **aizkolketa** izan zela aitortu zuen, izerdi batean aitortu ere -. ETC-literatura, saiakera

---

aizkora **1** *iz* zura eta kidekoak ebakitzeko erabiltzen den lanabesa, burdinazko xafla lau aho-zorrotz eta begidun batez, eta begian finkatzen den zurezko gider batez osatua.

Probintzia guztiak korritu hituen, **aizkora** gerrikoan eta botak sorbaldatik zintzilik, kopek baten ogia eta bi kopeken arrain gazitua janari. Jose Morales

Pikotxa eta **aizkora**, edo zerra eta palanka, borroka egin eta, gero, bataila ondoko jeneralaren duintasun graduarekin itzuliko da ontzira. Joseba Sarrionandia

Tenaza gorituak, ziri zorrotzak, **aizkora** edo garrotea ateratzen ziren orduan argitara. Aingeru Epaltza

Oihanetik atera zituan, lau mila langile, gerriraino lokaztuak, soina biluzik; beren erremintak lurrean ezarri, **aizkora** eta pala, eta nahikoa zela esan zitean. Xabier Olarra

Aizkora eta zizela beste lanabesik gabe. Jose Morales

Orain, ezinbestean izan behar dut justiziaren tresna bihozgabea, errudunen buruaren gainera eroriko den **aizkora**. Jose Morales

Auzian hilgailuak agertu zituen poliziak: bi **aizkora**, ezpata bat eta lantza bat. Gotzon Garate

Ekarri zure **aizkora**, eta ireki palmondo hau, larbak bil ditzagun. Pablo Sastre

Basajaunek **aizkora** bota zion, baina, ttikia izatearen bentajak nonbait, ez zuen jo. Pello Zabala

Aizkora hartu, zorroztu, kolpea jo, eta lepoa mozten dio jainko-ustekoari. Joxerra Garzia

Bat-batean, **aizkora** jaurti zuen labana bailitzan, eta bost bat metrora zegoen zuhaitz batean sartuta utzi zuen garbi. Bernardo Atxaga

Aizkora jasota masta nagusia eraistean hutsik utzitako brusol zulora egin zuen, alegia, lehenago Joanes agertu zen hartara, eta gero han barrura egin zuen, ontziaren arimaren bila balihoa moduan. Edorta Jimenez

Ondoan sugea eta **aizkora** tailaturik dauzkan erloju bat, beheraxeago "Bietan jarrai" idatzia duela. Eider Rodriguez

Kemenak eta adoreak zorroztutako **aizkora** gora oldartu zaio Nemo kapitaina, baina berandu da, alferreko dira ausardia eta borondatea, konortea galtzeko zorian dago harrapakina, hil hurren. Imanol Zurutuza

Bukatu eta **aizkora** batez lepoa moztu zion. **Aizkoraz** jotzen du baso trinkoa, eta Libanokoak bezain zuhaitz mardulak ere lurrera datoz. Gotzon Garate

Horrelako iraina entzunik, senarrak **aizkoraz** txikitu zuen. Gotzon Garate

Baina **aizkorak** uste ote du aizkolaria baino handiago denik? Elizen arteko biblia

Zuhaitza jotzen ari zen bati **aizkora** kirtenetik atera eta uretara jausi zitzaion. Elizen arteko biblia

Hala ere, ez zidan ezer askorik lagundu, ez eta berari lepoa mozteko **aizkora** zorrozten ez nintzela ari buruan sartu zitzaionean ere. Xabier Olarra

Eos jainkosak goizeko hatz gorriztak erakutsi zituenean, ohetik jaiki, jantzi, eta brontzezko **aizkora** bat eta zeio zorrotz bat eman zizkion ninfak Ulisesi, eta almadia egiteko zuhaitz egokiak erakutsi zizkion. Juan Kruz Igerabide

Hartu gezi bat, bere lekuan ipini, eta zutitu gabe bota zuen; ez zuen **aizkoren** zuloetako bat ere huts egin. Juan Kruz Igerabide

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aizkora eder, distiratsua atera zuen barrutik. Joxemari Urteaga

Gazte lerden tantaiak ikusi zituen korridorean, dozena erdi bat gehien jota, bakoitzak **aizkora** zorrotz bana zeukala eskuan. Felipe Juaristi

Aizkora kamutsegia dik nire lepo gogorrerako. Aingeru Epaltza

Atzetik gizon armatu eta hornituen karabana zetorren hautsak inguraturik, gerrarako **aizkora** handiak eskuetan. Agustin Otsoa

Pedrok, Nabok eta Jimenezek elizako atzealdean egin zuten hitzordua **aizkora** txikiak eskuetan. Jon Maia

Laidoa non den, beraz, han bedi **aizkora** eskerga jaus. Juan Garzia

Zerrategiko langileen **aizkora** kirten-luze haietako bat zeukan eskuan, eta airean zerabilen. Bernardo Atxaga

Gizon hura bere erpuru zabalaz **aizkora** distiratsu baten xafla igurzten ari zela ikusi zuen. Iñaki Mendiguren

Defentsari gerrako **aizkora** ateratzeko astirik eman gabe. Joan Mari Irigoien

2002an, apustua eta Urrezko **Aizkora** irabazi zizkion Mindegiak Arriari Berria - Kirola

3 (hitz elkartuen lehen osagai gisa)

Edertasun bena, mende orok bere-beretzat jotzen duena, harri zutena, tilapeena, **aizkora** -xaflarena eta hegazkinaren hegalarena dela. Euli-saldo baten burrunba ateratzen zuen aire beroak, eta airean jasotako **aizkora** -ahoaren moduko distirak egiten zituen argiak. Juan Garzia

Patroklesek, **aizkora** -formako erlojua; Dionisodorok, konoa; Apoloniok, gezi-zorro formakoa. Santiago Iruretagoiena

Aizkorarekin egurra mozten aditzen nuenean **aizkora** -kolpe haietan haren indar guztia barruntatzen nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Aizkora -kolpez moztu zioten lepoa. Pello Zabala

Sentimendurik gabeko buruak ziren denak, sentimendurik gabeko buruek bakarrik egin dezaketelako politika gaztanontziak, urdai puskak, saltxitxoiak eta irina erreaz, gaztategietako kobrezko galdarak **aizkora** -kolpeka apurtuz eta zerriak tiroka hilez. Koldo Biguri

Urrezko Aizkolarien Lehiaketak eman zion hasiera 2004-2005 **aizkora** denboraldiari. Berria - Kirola

Doneztebe (Nafarroa) izango da berriro **aizkora** txapelketa baten jokagune. Berria - Kirola

Hortaz, soilik binakako txapelketak ez ditu irabazi; hau da, Urrezko **Aizkora** Lehiaketakoa eta Nafarroakoa, baina horiek ez daude bere esku soilik. Berria - Kirola

Gustura euskal ordezkariak, eta gustura finlandiarrak ere haiek lehiaketan jarritako giroarekin **aizkora** erakustaldia egin zuten, eta trikitia doinuz alaitu ere bai bazterrak. Berria - Kirola

Bi **aizkora** saioen artean, harri-jasotze proba izango da ikusgai. Berria - Kirola

Agian, bi-bitako **aizkora** torneoa izango da aipagarriena. Berria - Kirola

4 *aizkol joko* ik **aizkoljoko**.

5 ***aizkora-aho***

Edo **aizkora-ahoa** aizkorarenari, musu ematerakoan duen gozotasunagatik. Iñigo Aranbarri

Euli-saldo baten burrunba ateratzen zuen aire beroak, eta airean jasotako **aizkora-ahoaren** moduko distirak egiten zituen argiak. Anjel Lertxundi

6 ***aizkora apustu*** *(orobat **aizkolapustu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **aizkolapustu** agertzen da)* ik **aizkolapustu**.

Bihar jokatuko da martxoaren 12an jokatu beharreko **aizkora apustua** , Tolosako zezen-plazan (12: 00). Berria - Kirola

Zialtzetak gogoan dauka Jazinto Rivasek atera zuen kantu bat Luxia-Naparra **aizkora apustua** zela-eta: [...]. Koldo Izagirre

Korrika saioak, **aizkora apustuak** , sentitutakoak eta sentiarazitakoak, ezkontzakoak eta omenaldikoak. Berria - Kultura

Heldu den igandean jokatu behar zuen Joxemari Olasagastik Unai Otaño eta Jexuxmari Lasaren aurkako **aizkora apustua** , baina apirilaren 9ra atzeratu dute. Berria - Kirola

Berriz, objetiboki, leitu duzue inoiz gure Herriaren izena **aizkolapustu** edo ihauteritako ez bada? Pablo Sastre

7 ***aizkora begi*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Tresnetan **Aizkora begi** , aitzur begi, arma begi, oinetakoen begiak (begiteak), ontzi begiak Oihalek ere oihal begiak dituzte (gazt. cordonillo, fr. cordonnet) Orratzak ere badu orratz begia. ETC-literatura, saiakera

Materialaren izenak (aizkoran: ahoa, **aizkora-begi** , aizkora-buru, matrail) edo janzkera (harrian: galtza, gerriko, txaleko). ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***aizkora buru*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Aizkora buruaren inguruan kakoa bezala erabili edo besoak aurrera luzatu alde handia dago, eta nafarra luzatzen da aurrera. ETC-prentsa

Aitarekin, harrizko lanabesak erabiliz soildu zituen lursailak: ez pertsonek egindako lanabesak, baizik eta oihaneko zoruan aurkitutako **aizkora-buruak** , Waengongi sortzailearen opariak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Burdinazko **aizkora-buru** bat, 1 kg-ekoa, aire zabalean utzi da neguko gau hotz batean, eta barrura ekarri da kanpoko tenperatura 250 K denean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Britainia Handian, Alemanian eta Frantzian, gero eta sarriago ekartzen ziren argira hainbat giza artefaktu, hala nola azkonak eta **aizkora-buruak** . ETC-zientzia, zuzenbidea

Enborra luzera jakin batean moztu, makinaren oinarrian jarri, botoia oinarekin sakatu, eta **aizkora-buru** itxura duen sorbatz batera doa enborra. ETC-literatura, saiakera

Aizkora-buruen metaketa bat hilobi-opagai bat izan liteke, aizkorak lantzeko piezen biltegi bat edo salgaien gordeleku bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *aizkora joko* ik **aizkoljoko**.

Hitzaren kirol nazionala da bertsoa; beraz, Koldo Mitxelenak zion hura egia bada, alegia, hizkuntza aizkoraren modukoa bada, **aizkora-jokoa** da bertsolaritza. ETC-literatura, saiakera

1991ko abuztuaren 24an Reno Rodeo deritzan tokira joan ziren ekitaldi mestizoa ikustera: rodeoko zaldi-zaldunak eta **aizkora jokoa** . ETC-zientzia, zuzenbidea

Beti ere saiatu gara estropada, **aizkora-joko** edo harri-jasotze txapelketa batean gertatzen den oro islatzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azpeitiko zezen-plazaren mendeurren-ospakizunak ezin zuen **aizkora jokorik** gabe iragan, eta bere tartea izango du, bihar, 12: 00etatik aurrera. ETC-prentsa

Guinness marka haustearen ideia federazioan eratu zela esan du Bihurrik, eta larunbateko saioa **aizkora jokoari** dion zaletasunagatik egingo duela markagatik baino gehiago. ETC-prentsa

Bidaia honekin **aizkora jokoa** ezagutzera eman nahi dugu, Austrian, Pakistanen eta agian Iranen ere erakustaldiak emanez. ETC-prentsa

Euskal kultura ezagutarazteko asmoz, bidean geldialditxoak egin zituzten, **aizkora jokoari** buruzko erakustaldiak egiteko. ETC-prentsa

Garai hartan **aizkora jokoa** ikazkinen artean egiten zen, mendi batekoak bestekoen kontra. ETC-prentsa

10 ***aizkora kirten***

zuhaitza jotzen ari zen bati **aizkora kirtenetik** atera eta uretara jausi zitzaion. Garrasika hasi zen hura, esanez: -Ai ene jauna! Bestek utzia nuen! Elizen arteko biblia

11 ***aizkora-kolpe***

Ez eskuaren hezurdura, zuri garbia, esku beltz ihartu bat baizik, **aizkora kolpe** batez bezala besoaren erdi aldean zehatz ebakitako hezurren gainean bere azkazal horiak, giharrak agerian, eta odol orban zaharrak, kraka balitz bezalakoak zituela. Josu Zabaleta

Egur txikitzen ari ziren bi soldaduren **aizkora-kolpeak** baino ez ziren entzuten; motor--hotsik, batere ez. Anjel Lertxundi

-Hutsetik hasi behar -esaten zuen Charvetek, motz, **aizkora kolpea** jo izan balu bezala. Karlos Zabala

Gero, **aizkora-kolpez** moztu zioten lepoa. Pello Zabala

Lopez ongi egon ohi da fisikoki, baina ez du Olaguekoak duen **aizkora-kolpea** . Berria - Kirola

Aizkora kolpe on eta biziarekin nagoela iruditzen zait, baina bete egiten naiz, eta hori gertatuz gero, alferrikakoak dira indarrak. Berria - Kirola

12 ***aizkora-kolpeka***

Sentimendurik gabeko buruak ziren denak, sentimendurik gabeko buruek bakarrik egin dezaketelako politika gaztanontziak, urdai puskak, saltxitxoiak eta irina erreaz, gaztategietako kobrezko galdarak **aizkora-kolpeka** apurtuz eta zerriak tiroka hilez. Koldo Biguri

13 ***aizkora proba***

Aizkoraren onerako izango zelakoan hasi zen Egur Sport Elkartea **aizkora proba** desberdinak antolatzen orain dela zazpi urte, Urrezko Aizkora izenarekin aurreko sei urteetan eta Urrezko Aizkolarien Lehiaketa izenarekin aurten. Berria - Kirola

14 ***aizkora ukaldi***

Sarekada bortitza, etxetako ateak **aizkora ukaldiz** hautsiz, barneko xoriak saretara biltzeko. Herria

Navas de Tolosa-ko batailan miramamolinak burdinazko kate batez ingurarazi zuen bere eremua, baina Nafarroako erregeak **aizkora ukaldi** batez eten zuen. Koldo Izagirre

Aizkora ukaldika hautsi zuten atea, bainan apeza ez aurkitu: gibeleko leihotik joana zen ihesi. Xipri Arbelbide

15 *gerra aizkora* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Ilaretan ikusten ziren, zintzilik edo lurrean, xabalinak eta dagak, arkuak eta geziak, mazoak eta **gerra aizkorak**, lantzak eta ezpatak. ETC-literatura, saiakera

Etxean, osaba Artur aiztoa berdelaren haragian sartzen ikusi duenean, jabetu da, moduren batean, **gerra aizkora** atera duela lurpetik Kirik. ETC-literatura, saiakera

Berritasun bat zen, atseden-gune bat errepide amaigabe baten erdian, nahikoa eta sobera nire aldartea aldatzeko eta **gerra-aizkora** gordetzeko. ETC-literatura, saiakera

Horrek ez zuen esan nahi bakoitzak berean amore eman zuenik, nahita ere ezingo zuten, baina bai gerra-deklarazioak eta **gerra-aizkorak** alde batera utzi zituztela, Txefe ongi jarri bitartean gutxienez. ETC-literatura, saiakera

Lurrontzi multzoak Europa erdialdeko sokazeramikaren tradiziotik zetozen (Sherratt, 1997), **gerra-aizkorak**, ontziak eta suharrizko aiztoak gordetzen baitzituzten ehorzketetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

"**Gerra aizkora** lurperatzeko eta non geratuko den ahazteko tenorea da", esan zuen presidenteak bozketaren aurretik. ETC-prentsa

Lulak ezkerraren **gerra-aizkora** lurperatu du, eta horrek ateak eta aukerak zabaltzen dizkio. ETC-prentsa

Soilik hitz solte batzuk iraun dute gaur arte, tomahawkhitzak esaterako ('**gerra aizkora**" esan nahi du) edo Potomac toponimoak (Washington hiria zeharkatzen duen ibaiaren izena da eta "merkataritza lekua" esan nahi du). ETC-prentsa

Arkeologo eta mediku forentseek, bere momia aztertu zuten eta "hiksotar motako **gerra aizkora** batekin hila izan zela" frogatu zuten. ETC-entziklopedia

16 *guda aizkora* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Objektuak erakusgai dituen Devizes-ko Museo bikaineko interpretazio honek iradokitzen du nola erabiliko ziren hezurrezko tresnak, **guda-aizkora** eta harri leundua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondorioztatzen da Inbutu-formako ontzien kulturak hilobi megalitiko kolektiboak zituela, non sakrifizio ugari egiten baitzituen, baina **Guda-aizkora** kulturako banakako hilobiak zituen, sakrifizio indibidualak egiten zirenean. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aizkora apustua** (3); **aizkora arria** (4); **aizkora arria v** (4); **aizkora bat** (14); **aizkora batekin** (7); **aizkora baten** (4); **aizkora bota** (3); **aizkora enborrean** (3); **aizkora era** (3); **aizkora eskuan** (4); **aizkora eta** (13); **aizkora eta sega** (3); **aizkora ez** (3); **aizkora hartu** (4); **aizkora iazko** (6); **aizkora irabazi** (3); **aizkora kolpe** (6); **aizkora kolpea** (5); **aizkora larretxea** (4); **aizkora larretxea eta** (3); **aizkora larretxeak** (5); **aizkora larretxeak eta** (3); **aizkora lehen** (4); **aizkora mindegiak** (4); **aizkora mugertza** (4); **aizkora nazabal** (7); **aizkora saioak** (3); **aizkora senosiain** (3); **aizkora txapartegi** (3); **aizkora txapartegik** (3); **aizkora txapeldunen** (4); **aizkora txiki** (4); **aizkora txikia** (3); **aizkora txikiak** (3); **aizkora urrezko** (9); **aizkora urrezko aizkolarien** (6); **aizkorak eta** (7); **aizkorakada bat** (5); **aizkorakada batez** (4); **aizkorakada gutxienean** (4); **aizkoran ari** (4); **aizkoran aritzeko** (6); **aizkoran eta** (6); **aizkoran ongi** (3); **aizkoraz eta** (7); **aizkoraz jo** (3); **banakako urrezko aizkorako** (3); **bat aizkora** (3); **bat aizkoraz** (3); **berriro aizkoran** (6); **da aizkora** (3); **da aizkoran** (5); **dio aizkorari** (3); **du aizkoran** (5); **duen aizkora** (3); **ebaki aizkorakada** (3); **ebaki aizkorakada gutxienean** (3); **ere aizkora** (3); **eta aizkora** (18); **eta aizkorak** (5); **eta aizkoran** (8); **eta urrezko aizkora** (3); **puntu aizkora** (3); **urrezko aizkora** (13); **urrezko aizkora irabazi** (3); **urrezko aizkorako** (9); **urrezko aizkoran** (7); **z aizkora** (3); **zeinek ebaki aizkorakada** (3); **zen aizkora** (4); **zen aizkoran** (3); **zuen aizkora** (6)

---

aizkoradun *izlag* aizkora duena.

Nik nire ezpatari helduko diodanik uste izatea, nahiz-eta borrokalari arlote kapelki eta **aizkoradun** horietakoen aurka izanda ere, uste ustela da. Patxi Ezkiaga

---

aizkoragile *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *iz* aizkorak egiten dituena.

Gainera, beraiek ekarritako aizkorak moldatu egin zituzten Urnietako Jauregi **aizkoragileenean**; bestela... ETC-prentsa

Afrikako aspaldiko ipuin batean, bazen **aizkoragile** bat. ETC-prentsa

10: 20an abiatu ziren Urdanibia plazatik **aizkoragileak**, danborrada, banda, komandantea, buruzagiak eta zalditeria, 11 konpainiek jarraituta. ETC-prentsa

---

aizkorakada *iz* aizkora kolpea.

Aizkorakada bat garondoan aski eta sobera izan zuen alderoka hasi eta lurrera erortzeko, baina erortzean eskua ireki zuen eta airean distira ikusi nuen. Juan Garzia

Aita aizkoran ari zen erritmo bizian, zuhaitzak moztu eta boteaz, nigandik hurbil, kurrinka eta auhenka **aizkorakada** bat jo ahala, beti egin ohi zuenez. Mirentxu Larrañaga

Kolpe gogor batzuk emanez taxutu ditu, zirti-zarta: **aizkorakada** bat eman, eta sudurra egin du; beste **aizkorakada** bat, eta horra ezpainak; daratulu handi batez egin ditu begiak; Hala ere, oldartu zitzaion Nemo kapitaina olagarroari, eta, **aizkorakada** batez, beste beso bat ebaki zion. Jose Morales

Oihanetik **aizkorakada** batzuen oihartzun urruna heldu zaie. Pello Lizarralde

Aizkoraren ahoko zati bat hautsi egin zitzaion, baina ez zen ohartu eta **aizkorakada** ugari eman zituen aitaren oihuak entzun zituen arte. Berria - Kirola

Mikelek animaliari sekulako **aizkorakada** jo eta, hilik zegoelakoan, erreka-zulo batera bota zuen. Martin Anso

Eta hona hemen Moabiarraren **aizkorakada** ozena. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aizkorakada bat** (5); **aizkorakada batez** (4); **ebaki aizkorakada gutxienean** (3); **zeinek ebaki aizkorakada** (3)

---

aizkoran *adlag* aizkora lanean.

Bistan da Olasagasti prestatuta dagoela, **aizkoran** ongi egin duela eta gehiago izan dela. Berria - Kirola

Beraz, bi urteko etenaldia egin du **aizkoran** eta arraunean (Orion) hainbat hilabete egin ostean, Luismari Bengoak, Egurosporteko antolatzaileak, Banakako Urrezko Aizkolarien Lehiaketan aritzeko gonbidatu zuen. Berria - Kirola

Baso itsuan **aizkoran** ari den egurgina ziruditen. Elizen arteko biblia

Aizkoran edo korrika, estropadetan nahiz karga-jasotzen, berdin zitzaion. Xabier Etxabe

Aita **aizkoran** ari zen erritmo bizian, zuhaitzak moztu eta boteaz, nigandik hurbil, kurrinka eta auhenka aizkorakada bat jo ahala, beti egin ohi zuenez. Mirentxu Larrañaga

Eta Pablo Ibar-ez euskal hedabide publikoetan esandakoak datozkizu berehala akordura, eta Francisco Larrañagaz loratutakoak, eta erreportaje bitxietako "Ameriketako euskaldunak", askotan egundo lur hau zapaldu ez dutenen postal zuri-gorri-berde horiek, **aizkoran** Boisen, txinga eroaten Caracasen, ezpatadantzari La Platan, zangoa euskal zeruraino jasoa. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aizkoran ari** (4); **aizkoran aritzeko** (6); **aizkoran ongi** (3); **berriro aizkoran** (6); **da aizkoran** (5); **du aizkoran** (5); **urrezko aizkoran** (7); **zen aizkoran** (3)

---

aizkoratxo *iz* aizkora txikia.

Bi egunetarako janaria jarri zuen zaku batean, altzairuzko kranpoiak hartu zituen, gerriaren inguruan soka luze, mehe baina sendo bat lotu zuen, begiratu zuen nola zeuden makila burdinazko muturduna eta izotzetan mailak zulatzeko erabiltzen den **aizkoratxoa**. Josu Zabaleta

---

aizolbe *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)* *iz* haizeak jotzen ez duen tokia; aterpea.

Gela bakarreko apartamentuaren **aizolbean**, auzoko lauzpabost biztanle biltzen ziren. ETC-literatura, saiakera

Beren apartamendu txarrak ezin bortxatuzko gerizatzat zeuzkaten, izan Parisen, izan Meaux-n berean, izan ondoko herrixka batean, beren lantoki erotzailetik zenbait orenez **aizolbean** atxikitzen balituzte bezala. ETC-literatura, saiakera

Pertsonaiak solaskide absenteei, ahots isilduei, mututuei, gorputz sarraskituei, herriaren historia zeharkatzen duten masa ala emakume diren besteei mintzo dira orokorrean, pijama soilaz jantzi nor bakun baten **aizolbetik.** ETC-zientzia, zuzenbidea

Ume berantiarrari esker -berezkoa, medikalki ernaldua ala adoptatua- emazteak naturala zaion gizonaren **aizolbea** berreskuratuko duke. ETC-prentsa

Denen gostukoa date segur aski Nafarroako hiri-buruko desordenatuen **aizolbea**. ETC-prentsa

Lamartine eta Alphonse Daudet poeten **aizolbean** ospetsu bihurtu zen Parisen Mistral. ETC-prentsa

Haritzen erdian **aizolbetu** lau etxe dira eta aspalditik konpontzen ari diren XII-XIII.eko baseliza bat, egundainokoan liliztatua den hilerri distiratsuaz setiatua. ETC-prentsa

Beti egiten dugu zedrozkoa edo 1.200 metrotan motel eta **aizolbean** hazi den pinuzkoa, zeren eta beraien urteek osatu geruza horiek bigunak badira ere, artekak gogorrak dira. ETC-prentsa

Mendiaren basak inguratzen duen artzainaren **aizolbea** da. ETC-prentsa

---

aizolbetu , aizolbe(tu), aizolbetzen da *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *da* aterpetu.

Teatroko ostatuan **aizolbetu** ginen uhar ezkela ari zuelako. ETC-literatura, saiakera

---

aizpa ik **ahizpa**.

---

aizta *iz* ahizpa.

Aiztagaz joko dut? Juan Garzia

---

aiztaga *iz* lantza.

Aiztagaz joko dut? Juan Garzia

---

aizto **1** *iz* ebakitzeko tresna, metalezko xafla batez eta kirten batez osatua. ik**ganibet**; **labana**; **kutxilo**.

Marmita bat ere erosi genuen, eta petroliozko berogailu bat, mozteko ohol bat, eta **aizto** bat. Juan Kruz Igerabide

Joan eta hartu zuen **aizto** bat, sukaldeko horietakoa uste dut. Askoren artean

Hozkirri sarkor bat sentitzen dut eskuin belarriaren paretik pasatzen, **aizto** bat bezala. Harkaitz Cano

-Hobe aparailuak ebaki mastetara igo baino! -erantzun zuen Joanesek, **aiztoa** esku batean eta aihotza bestean. Edorta Jimenez

Emilek **aiztoa** ahurretik pasatu eta saltxitxoia kontu handiz ebaki zuen. Lopez de Arana

Atzetik hurbildu zitzaion nagusiari eta, bizkor, behin eta berriro sartu zion **aiztoa** bizkarrean. Jose Morales

Aiztoak leun-leun egin zuen bidea, kirtenak garondoan tope egin arte. Anjel Lertxundi

Aiztoa sabel barrura irristatzen sentitu, eta ez zuen txintik atera, bere halabeharra onartuko balu bezala. Aritz Gorrotxategi

Ateratzen dut **aiztoa** jakatik, eta Kolomanen sabelean sastatzen dut. Eskarne Mujika

-Denak garbitu! -eta **aiztoa** bailitzan pasatu zuen esku ertza lepotik. Josu Zabaleta

Emilek **aiztoa** ahurretik pasatu eta saltxitxoia kontu handiz ebaki zuen. Lopez de Arana

Mutilak **aiztoak** eta sardexkak zuzen jarri zituen, mahaiari beste itzuli bat egiten zion bitartean. Lopez de Arana

Tiraderatik, **aiztorik** handiena hartu nuen, okela txikitzeko **aizto** bat. Eskarne Mujika

Hiria suntsitu nuen, hiritarrak **aiztoz** hil nituen, emazteak eta harrapakinak gurekin eraman genituen, eta denon artean banatu. Juan Kruz Igerabide

Hiria suntsitu nuen, hiritarrak **aiztoz** hil nituen, emazteak eta harrapakinak gurekin eraman genituen, eta denon artean banatu.Beheko jantokitik, janariaren gurin-usainaren eta **aiztoek**, sardexkek eta platerek eragindako txilin-hotsen artean, baltse baten doinu kiribila igotzen zen. Juan Kruz Igerabide

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gizaseme, hartu **aizto** zorrotz bat eta erabili bizarra mozteko labana bezala: moztu ilea eta bizarra, pisatu eta banatu hiru metatxotan. Elizen arteko biblia

Sukaldean txikitu beharreko guztia di-da txikitzen zuten **aizto** harrigarriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Laugarren eguneko goizaldean bi indio ikusi genituen landan barrena, eskuan **aizto** makur banarekin. Joxe Austin Arrieta

Isiltasunak badaki aterpe gozo izaten; badaki **aizto** zorrotz izaten; amorrua zein maitasuna ozenagotzen badaki; badaki sekretuak gordetzen; musikari eusten eta hitzari arnasa ematen badaki. Joxerra Garzia

Besterik ere ikusi nuen, zintzurra zabalik edo sabela urraturik, oraindik ere eskuan dutela sukaldeko **aiztoa** edo bizarra kentzeko labana. Josu Zabaleta

Gustu txarreko hitza iruditzen zaio berari, bi ahoko **aizto** baten modukoa, unea garrazten duena. Oskar Arana

Argi bizi batek intxaurkiz apainduriko jangela hura gainezkaturik zeukan, zilarrezko **aizto** eta sardexketan aldizka dir-dir eginez. Lopez de Arana

Egin suharrizko **aiztoak**. Xabier Kintana

Nik, argizaria eskuetan hartu eta brontzezko **aiztoaz** zatikatu nuen, eguzkitan bigundurik; lagun guztiei belarri-zuloak estali nizkien. Juan Kruz Igerabide

Arrazoia zen Jansonek sineste handiagoa zuela bere finlandiar **aiztoan** traste zahar herdoildu hartan baino. Jose Morales

Zezenari sartzen zaion azkeneko **aizto** bihurra bezalakoa izan zen hura. Unai Iturriaga

Ez nintzen gauza zutik jartzeko, baina larritasunak kemenik aski eman zidan lurrean narraska abiatzeko, etxeordetik irten eta kalean zehar arrastaka jarraitzeko, etxe aldera, ustez, izu-laborriarekin eta zangarra suzko **aizto** moduko zerbaitek ziztaturik, ezin bainuen argi ikusi non nengoen eta nora nindoan. Juan Kruz Igerabide

3 (hitz elkartuetan)

Halako batean, honek, agi danean, gerora hilko zuen **aizto** ukaldia eman zion. Iñigo Aranbarri

Ibaia **aizto**-ahoz beterik zegoela baitzirudien, hain ere zen distiratsu. Lopez de Arana

Palmondo berdea hagaxka bat bezain malgua da, eta beraren hostoetan **aizto**-zorroztearen soinua dagi haizeak. Joxe Austin Arrieta

4 irud/hed

Dena den, saldukeriaren **aiztoak** zauritzen zaituelarik, ez da samurra gizaki zuhur gisa jokatzea. Juan Kruz Igerabide

5 ***aizto elektriko*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Eta amonak amatxoren altzotik ateratzen nau nahiko zakar, eta neure aulkian esertzen nau; aitonak, berriz, martxan jartzen du zatikatzeko **aizto elektrikoa**, eta Jack Tripa-ateratzaileari buruz beti egiten duen txantxa bera egiten du. ETC-literatura, saiakera

Halakoetan ohikoa izaten denez, inbentario zehatz bat egin du: hozkailua, bi izozkailu, telebista bat, garbigailua, baxera, kafe-errota elektriko bat, eta baita semeak Alemaniatik ekarria zion **aizto elektrikoa** ere. ETC-literatura, saiakera

Ganibet elektrikoa edo **aizto elektrikoa** elikagaiak xehatzeko erabiltzen den sukaldeko tresna elektrikoa da. ETC-entziklopedia

6 *aizto ukaldi*

Halako batean, honek, agi danean, gerora hilko zuen **aizto ukaldia** eman zion. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aizto bat (21); **aizto batekin** (4); **aizto eta** (4); **aizto zorrotz** (4); **aizto zorrotza** (4); **aizto zorrotzak** (3); **aiztoa eskuan** (4); **aiztoa eta** (8); **aiztoa eta sardexka** (3); **aiztoa hartu** (4); **aiztoa hartu zuen** (3); **eta aizto** (5); **eta aizto bat** (3); **eta aiztoa** (5); **hartu zuen aiztoa** (3); **nuen aiztoa** (3); **soaren aizto** (3); **soaren aizto zorrotzak** (3); **suharrizko aiztoak** (3); **zuen aiztoa** (4); **zure soaren aizto** (3)

---

aiztodun *iz* aiztoa duen pertsona.

Aiztoduna putetxera sartu zen. Juan Garzia

---

aiztogile *iz* aiztoak egiten duen pertsona.

Sarriegiren haurtzaroko eta gaztaroko Donostian, gremioetan banatutako gizarteak taxutzen zuen eguneroko bizitza, errementariek, marinelek, okinek, kandelagileek, gozogileek, upelgileek, **aiztogileek**, arotzek eta inprimatzaileek hain zuzen. Askoren artean

Duela gutxi hasi dituzte lanak, Gasteizko Alde Zaharreko **Aiztogile** eta Hedegile kaleen artean dagoen orubean, Naipe museoaren parean, eta museoaren eraikuntza 21 hilabetean burutzea espero dute arduradunek. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aiztogile kaleko (3)

---

aiztokada *iz* aizto ukaldia.

Adela isilik geratu zen, **aiztokada** baten zain dagoenaren antzera. Juan Kruz Igerabide

Osasun-zerbitzuetako langileek andetan gaixo berriak ekartzen jarraitzen zuten, eta banan-banan igaro ziren nire aurretik epilepsiak jota edo hesteak buxatuta, **aiztokada**-zauriekin edo gehiegizko heroina-dosiekin, beso hautsiekin edo buru odoleztatuekin. Oskar Arana

Gutxi iraun dit adore berriak, ordea, jaisten hasi orduko hotzaren **aiztokadak** sentitu baititut ostera ere gorputz osoan. Jon Arretxe

Txalupa urertzera hurbildu ahala, eraikinak metatu egiten ziren **aiztokadek** arraildutako granitozko mendi batean. Lopez de Arana

Aiztokada zorrotza sentitu nuen bularraren erdian. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aiztokadaka hil ere (3); **baita aiztokadaka hil** (3)

---

aiztokadaka *adlag* aizto ukaldika.

Joan den astean, esaterako, beste gaizkile bat harrapatu genuen, baita **aiztokadaka** hil ere. Berria - Kultura

---

aiztur *(orobat **aixtur**)* **1** *iz pl* guraizeak, artaziak.

Bakarreko itxialdiko seigarren astean, gosariarekin batera **aizturrak**, xaboia, ispilu txiki bat eta bizar-labana utzi dizkidate zoruan. Koldo Izagirre

Hotsemak, ekarzkidak **aizturrak** eta piztak argia, zilborrestea ebaki diezaadan. Juan Garzia

Badirudi Rielle eta Willibrord karriketako egoitza gorrilunak aluminiozko zeruan **aizturrekin** pikatuak direla. Aurelia Arkotxa

Ez zen **aizturrekin** egina izan. Ramuntxo Etxeberri

-Mahaitik **aiztur** handi batzuk hartu eta zerbait mozteko keinua egin nuen- honela moztu dut. Fernando Rey

Aiztur kolpeak. Ramuntxo Etxeberri

Pepponek makurtu eta mahats-**aizturrez** ebaki zuen zaku-ahoa ixten zuen burdinaria, baina segidan zutitu zen eta zurbilduta begiratu zion On Camillori. Koldo Biguri

2 *mahats aiztur* *pl* mahatsondoak mozteko aizturrak.

Makurtu eta **mahats**-aizturrez ebaki zuen zaku-ahoa ixten zuen burdinaria. Koldo Biguri

---

aizu[1] *(ETCn 7.**130** agerraldi; orobat **adizu** ETCn **100** agerraldi)* *interj* esandakoaren indargarri edo arreta eskatzeko erabiltzen den hitza. ik **aizue**, **aizan**, **aizak**; **aditu**[1]; **ei**[2]; **e**.

Aizu, morroi batek zuri gutun hau emateko eskatu dit. Patxi Zubizarreta

-E, **aizu**, zer dela-eta ari zara honi zirika? Koro Navarro

- **Aizu**, andre Fausta, ez al zaizu begitantzen hor doan jauna Valencia doktorea dela? Juan Garzia

"**Aizu**, ama", esan nion. Bernardo Atxaga

Behin, izeba Marixabel etorri zen eta **aizu**, ez da normala, neska honek oso azkar ikasi du esan zidan. Lander Garro

-Negar eginez ez dituzu lotuko lokarriak, **aizu** -esan du McAllister andereñoak. Mirentxu Larrañaga

Aizu, Maribel, zu zara karteroa? Joseba Sarrionandia

- **Aizu**! Pello Lizarralde

- **Aizu**, uste dut hemen okerren bat izan dela -erran nion. Alberto Ladron Arana

Aizu, anker hori, nolatan jarri duzu zalantzan amaren bihotza? Juan Kruz Igerabide

-Askotan etortzen zait galdezka, **aizu**, zer egin zenuen halako herritan kreditua eskatu zigun amona harekin? Pako Aristi

Orain arrazista ez izateko ijitoak gustatu behar, **aizu**, hori besterik ez genuen behar. Urtzi Urrutikoeetxea

Aizu, faborez, Ibaetako sute horren inguruan ahal duzun guztia lortu iezadazu. Fernando Morillo

Aizu, tabernan esan didate, Txiki hori, fusilatu behar duten hori, extremeñoa dela. Jon Maia

Aizu, eta gainerakoan, zure denboraldirik onena ikusten ari garela dirudi. Berria - Kirola

Esan nion erdi txantxetan: **aizu**, atera ezazue B plana, honek ez baitu aurrera egingo! B plana atera beharra daukate! Berria - Euskal Herria

Hortik aurrera, herririk herri hasi nintzen galdezka, "**aizu**, ezagutzen duzu panderoa jotzen duen inor?". Berria - Kultura

- **Aizu**, **aizu** -esan zuen postukoak-, kontuz baxerarekin. Lopez de Arana

-Aizu, harritzekoa da gero. Eskarne Mujika

Aizu! Ekarri zure aizkora, eta ireki palmondo hau, larbak bil ditzagun. Pablo Sastre

-Gainera -gehitu zuen ziurtasun handirik gabe-, zu haren antzekoa zarela esango nuke, **aizu**. Aitor Arana

-Bainuetxe hori, **aizu**, ez zen horrelako pertsona batek erabiliko zukeen ostatua. Ibon Uribarri

-Aizu, **aizu**! -hots egin zion berriro Ninik. Josu Zabaleta

"Talo-talo eginda uzten zituen, **aizu**!", esaten zizun. Jokin Muñoz

---

aizu[2] ik **haizu**.

---

aizue *(ETCn **1.070** agerraldi; orobat **adizue** ETCn **7** agerraldi) interj* esandakoaren indargarri edo arreta eskatzeko erabiltzen den hitza. ik **aizu**[1], **aizan**, **aizak**; **aditu**[1]; **ei**[2]; **e**.

Ez zabiltzate ongi hemen **aizue**, ni biharko Txekia-Danimarka palkotik ikusteko irrikitan nago; ea iristen naizen. Berria - Kirola

Apirilaren 20an, eta Sevillan izotza, **aizue**! Pello Zabala

Aizue, eztarria lehortzen hasi zait, ekarriko al didazue zer edo zer edateko, mesedez? Iñaki Iñurrieta

Bultza egiten omen zion, **aizue**! Xabier Olarra

-Aizue, eta zer egiten du zuen aitak Magiako ministerioan? Iñaki Mendiguren

Eta, gainera, sekulako iskanbila dut hemen... **Aizue**, beheratuko al duzue musika, arren? Mirentxu Larrañaga

Badakit ez dagoela ondo, baina larrialdia larrialdi da, **aizue**. Joxerra Garzia

Bakoitzari berea, **aizue**. Harkaitz Cano

Aizue, pasadizo hura gogora ekartzeak berak egundoko ikara ematen dit oraino... Josetxo Azkona

Aibala, Arantzazun, Gasteizen eta Iruñean frexko baino eguzkia daukate, eta besteotan lainoa eta xirimiria, **aizue**! Pello Zabala

"Ikus gaitzazuen", errieta kutsua duen leloa da: e! **aizue**, hemen gaudela, edo horrelako zerbait. Txema Ramirez de la Piscina

- **Aizue**, gazteok -esan zien-, ondo asko dakit leku batean egiten direla eroste-agiri guztiak. Jose Morales

-Baina, **aizue** -esan zuen izeba Katek, ia ezin egonik-, nora doa Julia? Irene Aldasoro

Gero, mahaikideei mintzatu zitzaien, beso zabalduez hitzei lagunduz: -Ez omen dik hotzik pasatuko, **aizue**! Anjel Lertxundi

---

aizun **1** *izond* faltsua.

Urrezko zekorra jainko **aizunaren** pertsonifikazioa da Itun Berrian. Xabier Olarra

Matrikula **aizuna** zuen, autoari ez zegokiona. Gotzon Garate

Larru **aizunez** tapizaturiko sofak. Aingeru Epaltza

Zinema-antzezle baten gisa, adats gorri **aizuna** ezker-eskuin kulunkatzen zitzaion, bere jabearen mugimenduekin batean. Aingeru Epaltza

Nire egiaz mintzatze hau ez bedi har egile baten umiltasun **aizunaren** gisa. Jon Muñoz

Hor adierazten diren ia sentimendu guztiak **aizunak** edo itxuratuak direnez, ez dezakete kitzika jakinminezko interesa baizik. Jon Muñoz

Ikasle sos gabeen eta errondari adinekoen behialako bilgune, bere bezeria goratzea lortzen ari zen aspaldi horretan, sofistikazio **aizunik** gabeko zapore "egiazkoen" usman. Aingeru Epaltza

Baserri **aizun** tankerako etxe batean omen zegoen, eta ez omen zuen batere itxura beltzuria. Xabier Olarra

Tomas Akinokoak Aeropagita **aizunaren** *De divinis nominibus* liburuaren azalpen eta iruzkinei liburu oso bat eskaini zienak, bere beste obra batean aipu esanguratsu hau jaso du: [...]. Joan Mari Lekuona

Argizariak, zurbil eta **aizun**, zer gordetzen du, urre preziatua legez? Anjel Lertxundi

Esan dezagun, orain baita horretarako tenore, estilo **aizun** halako batez jasotako txalet batean bizi dela N. jaun artista. tradizio anitzetan barna sartu-irtenak eginaz, erudizio erreal eta **aizunaren** alardea eginaz, narrazio teknikarik landu eta bihurrienak maisuki erabiliz, orain irakurketa lanbrotuz eta bat-batean argituz. Berria - Kultura

· Horregatik, aukera izan duen bezain aise, estudio bat eraiki du **estilo aizuneko** txaletaren hormaz horma. Berria - Kultura

Gutxienez 71 pertsona hil dira Indian alkohol **aizuna** edateagatik. Berria - Gaiak

2 ***ahalke aizun*** ik **ahalkeizun**.

3 ***sabai aizun*** *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Logela eta bulegoa txukun daude, **sabai aizunez** eta zoruan parket antzekoz, baina gela horiek bistara ematen dute, taberna, eskola eta errepide. ETC-literatura, saiakera

Sabai aizuneko listoiak agerian zeuden nonahi, eta usteltzen ari ziren, animalia gosez hildako baten saihets-hezurrak bailiran. ETC-literatura, saiakera

Jaurtita irtendako estalkiak langilearen burua kolpatu eta tabernako **sabai aizuna** zulatu zituen, eta, itxura denez, bertan gelditu zen. ETC-prentsa

Hori guztia konpontzeko, hormigoiari tratamendu berezia eman diote, eta **sabai aizuna** eta klimatizazio hodiak kendu egin dituzte. ETC-prentsa

Tarte horretan, bi geruzako **sabai aizun** bat jar daiteke, beheko lokaleko jarduerek goiko solairuetan eraginik izan ez dezaten. ETC-zientzia, zuzenbidea

sabai aizun ETC-zientzia, zuzenbidea

Hormaren lehen tartean, sakristia dago; oinplano errektangularrekoa, **sabai aizuneko** estalkiarekin. ETC-entziklopedia

Beheko solairuan **sabai aizuna** badago, solibei jositakoa izaten da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **estilo aizuneko** (3)

---

aizundu *izond* faltsutua.

Nazionalismo suminduak **aizunduak**, gainera. Berria - Kultura

---

aja **1** *interj*

- **Aja** -baieztatu zidan harro-harro. Jon Muñoz

- **Aja**! -oihu egin zuen, Harry, Ron eta Hermione ikustean-. Iñaki Mendiguren

2 ***iji-aja*** *iz* barrea.

Eta iji-ajaka Gorputz Heziketa hartu nuen joan den urtean, **iji-aja** etenik gabea. Jesus Mari Mendizabal

3 ***iji-ajaka***

Baina, tira, nik ezin ditut bizitzako arazo guztiak ganbaran jaso eta gorde; zenbait gauza **iji-ajaka** burla-airez hartu beharra dago, beste gainerakoan zeharo lelotuko nintzateke. Jesus Mari Mendizabal

Eta **iji-ajaka** Gorputz Heziketa hartu nuen joan den urtean, iji-aja etenik gabea. Jesus Mari Mendizabal

4 *iji eta aja*

Irri karkailak ez dira atertzen, eta mutikoak astoak bezain tematsuki segi berean, komandantearen ahots amorratua aditu den arte: Ez bara hor **iji eta aja** ergelen moldean. Xabier Montoia

Bertan edukitzen zuen tartetxo batez, sabaiari lotuta, **iji eta aja**. Jokin Muñoz

Baina gero, lanetik ateratzean, seiak aldera irteten gintunan gu garai hartan, urte sasoi hartan ilundu gabe zegonan artean, eta hara non ikusten dugun italianoa bestaldeko espaloian, nire zain nonbait, niregana etorri baitzen kaminoa pasatuz, eta nirekin batera ateratako beste neskak **iji eta aja**, barre algaraka elkarri ukondoarekin joka. Xabier Mendiguren Elizegi

Marra urdindun txabusina hori bat zuen jantzita, eta sofa gainean etzanda, neska beltzaran batekin ari zen **iji eta aja**. Mirentxu Larrañaga

Eta hirugarren urtez, salmenta eroari zalaparta alaiari festa usainari ezinbesteko sozializazioari **iji eta aja** eta egongo gara aupa aspaldiko, hortzez gainezka egiten duten irribarreen zurrunbiloari balazta jarri dion gauza bakarra izan da esaldi hau. Berria - Kultura

Honi txiri eta hari txiri, abilki pasatu zen zomorrotegi baten gisako mundu ñimiño haren artetik, Dublingo noblezia zaharra **iji eta aja** ibili zen jauretxe soil espektralen itzalean. Irene Aldasoro

Iji eta aja azaldu ez zitzaigun ba. Antton Olano

Lanak izan genituen barre bihurriei eusten, zeren batak mutur serioa berreskuratu orduko, han hasten baitzen bestea **iji eta aja**. Alberto Ladron Arana

Atea itxi eta eskaileretan behera eraman ninduen presaka, **iji eta aja** ugariren artean. Hasier Etxeberria

---

ajaja ik **iji 4**.

---

ajaka ik **iji 4**.

---

ajataka 1 *adlag* barre algaraka.

Frantziako gortean irriz **ajataka** lotuko ziren irakurriz gero. Aingeru Epaltza

2 *irri-ajataka*

Bai, niri ukituka eta zirri eginez barre-algara batean hasten zen, **irri-ajataka**! Fernando Rey

Hogeita lau ordu lehenago toki horretan berean hautatu nuen leloaren oihartzunak **irri-ajataka** durundatu zuen ene buru-barne minduan. Aingeru Epaltza

---

ajatu, aja(tu), ajatzen 1 da *ad* kolorea edo berri-itxura galdu.

Gainera, paperezko argazkiak **ajatu** egiten dira denbora pasatu ahala. Joxerra Garzia

2 (era burutua izenondo gisa)

Ule eta bizar zuriok, aurpegi **ajatu** hau, izan dodan bizimodu gogorraren ondorio dira.Nik hogeita bost urte bakarrik nituen eta zahartuxeak iruditu zitzaizkidan, garaiz kanpoko igaliek duten kolore zurbil eta **ajatuarekin**. Jon Arretxe

---

ajatuxe *izond* ajatu samarra.

Bien soineko ilunak jadanik **ajatuxeak** ageri dira, baina, adatsak garbi eta txukun orraztu berriak. Patziku Perurena

---

aje 1 *iz* gorputzeko ondoez edo osasun beheraldia, larria ez dena; biharamona (hirugarren adieran). Ik **bestondo**.

Atsoak joaten zitzaizkion, azterketa egiteko eta beren **ajeak** kontatzeko. Fernando Rey

Berak ere bere **aje** eta oinazeen inbentarioa egin zigun. Xabier Mendiguren Elizegi

Gogoko zituen jendearen **aje** eta eritasunak. Fernando Rey

Inork badu-eta, hik duk hiri saindu honetako bizilagunen erokeria, seta, jaidura, bizio, **aje** eta gaitzbide guztien berri. Aingeru Epaltza

Ajea Efteralgan baten bitartez apaltzen saiatu naiz, arrakasta handirik gabe baina. Iban Zaldua

Asko ohean izango dira gaur, ez **ajeak** edo biharamunak bultzatuta, atzoko zaparradak eragindako sukarrak eta katarroak behartuta baizik. Berria - Euskal Herria

Gaitzak eta **ajeak** ere ez ditugu aintzat hartu dibortziorako arrazoien artean. Andres Urrutia

Orain, zahartuta nagok, eta beharbada hik baduk diru apur bat bidaltzea hona, ni hire ama izanik, adinaren **ajeengatik** miseria gorrian bizi bainauk, eta inork ez naik lanerako hartu nahi. Eskarne Mujika

Zahartzaroaren **ajeen** kontrako borroka modurik hoberena etengabeko estimulazioa da. Berria - Gaiak

Azkenean luzea eta erdi ergela bihurtzen zarela, dela aitagandik heredatutako **ajeagatik**, dela gertakizunengatik. Pello Lizarralde

Lotordu gutxiegi ziren speedaren **ajea** uxatzeko, baina bazen zerbait. Unai Iturriaga

Erdi mozkorturik nengoen ordurako, eta, egia esateko, ez nien kasu handirik egin Etxeberen hitzei; biharamunean, **ajea** pasatu zitzaidanean, pittin bat arduratzen hasi nintzen Etxeberen obsesio moduko horrekin. Iban Zaldua

Urtezahar eguneko **ajea** pasatzen laguntzen diguten Garmish-Partenkirchen-go eski salto txapelketan jauzilari euskaldunak ikustea ere gustatuko litzaiguke. Berria - Kultura

Baina aspirina bat hartu behar dut oheratu baino lehen, biharko **ajea** baretuko badut. Unai Iturriaga

Ez zagok kafea bezalakorik **ajea** kentzeko. Pedro Alberdi

Adin ertainean hasten da nabarmentzen folikuluen galera, baita lehenago ere batzuetan, eta sendabiderik ezagutzen ez zaion **ajea** da. Irene Aldasoro

Joan ziren kapitainarengana eta ohean aurkitu zuten, adinaren **ajeak** erasanik. Felipe Juaristi

Hau ez zen gaztetxo bat, nerabezaroko **ajeak** gaindituak zituen aspalditxo, baina gaztaroa igarotzetik urrun zegoen artean. Migel Angel Mintegi

Garaia zen, gaztaina-koloreko adats luzea zeukan, makillajea sobera eta bizimoduaren **ajeak** nabarmen samarrak. Migel Angel Mintegi

Tori, hartu beste kopa bat, **ajea** kenduko dizu. Koro Navarro

Hungariatik salamia eta pepiniloak ekartzen zituen [...] Norvegiatik izokina eta narbal itsas animaliaren adarra, hauts egina bera, nakarrezko kutxa txikietan, José II Enperadorearentzako, hautsek bai adinagatik bai erabiliagatik **ajea** zuen hankarteko adarra, alegia, zorion-emaile zitzaion adarra, zaharberritu eta berpiztu egiten zutela uste baitzen, orduan, gaztetzeaz batera. Felipe Juaristi

Txit zuria zen, kareztatu berria zegoen eta **ajez** betetako atso zahar desitxuratu baten eitea zuen. Karlos Zabala

Hain keinu arrunta den pertsiana altxatzea gehiegizko lana da **ajeak** jota zaudenean. Sonia Gonzalez

Oi heriotza, ongi etorria zure erabakia behartsu eta indargabe dagoenarentzat, oso zahartua eta **aje** askorengatik abaildua, nazkaturik, pazientzia galduta, agertzen denarentzat! Elizen arteko biblia

Ahoko zapore mikatzak **ajearen** ebidentzia sendotu zion. Fernando Morillo

Halloweeneko **ajea** pasata, asteazken goizaldean, jakingo da nor den bizirik jarraitzen duen hautagaia eta nor hildakoa. Berria - Mundua

Ajea txarra izanda ere, biharamunean poltsikoko diru guztia agortu ez duen mozkorraren egoeran da Reala. Berria - Kirola

Ez baitago beheraldi gabeko igoaldirik; ez baitago barealdirik gabeko beheraldirik, erran nahi baita, **ajerik**. Unai Iturriaga

Malta-whisky onak ez omen du **ajerik** uzten. Iban Zaldua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Beste **aje** mingarri bat ere eragiten du zutikako jarrerak: disko-hernia. Irene Aldasoro

Biharamunean izugarrizko **ajeaz** esnatu nintzen, bezperan edan genuenagatik. Joxemari Iturralde

Jaiki zenean izugarrizko **ajea** sentitu zuen, une batetik bestera kaskezurrak eztanda egingo ziola pentsatzeko modukoa. Joxemari Urteaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Amaren osasun **ajeren** bat? Karlos Linazasoro

Bizi zen giza enda hura gogorragoa zen, bidezko denez, lur gogorrak sortzen baitzuen, eta hezur handiago eta sendoagoek sostengatzen zuten, erraiak nerbio indartsuz loturik, ez zitzan ez beroak, ez hotzak, ez janaren berritasunak, ez inolako gorputz **ajek** aisa harrapa. Xabier Amuriza

Garrantzi handiko gaia izan daiteke etorkizunean, zeren giltzaduren lubrikazio-**ajetzat** har baitaitezke guk guztiok, nahiko denboran bizitzea gertatuz gero, nozituko ditugun gaixotasun erreumatikoak. Irene Aldasoro

Belodromoa betetzea lortu ondoreneko bozkario-**ajea**, kultur egitasmo baten oinarriak jartzera bideratzeko adinako begia izaten zuten gure inguruko bertsozale eta bertsolari batzuk. Andoni Egaña

4 irud/hed

Gorrotoz horditu ondoren, etsipenez beteriko **aje** garratza pairatzea egokitzen zitzaion. Aritz Gorrotxategi

Ilaren 14ko hauteskundeen **ajea** gainetik kendu berria, EHUko unibertsitariek berriro hautatu behar izan zuten atzo. Berria - Euskal Herria

Ezin aipatu gabe utzi, ordea, **aje** bizian gauzkan gaitz horren beste sintoma bat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ofizioaren **aje** tristea, idazlanak estimaziorik ez jasotzea. Ana Urkiza

-Gerraren **ajeak**, jauna. Felipe Juaristi

Aje arrazial hori (kasu berbatxoari: arraza) bekaizgoa da. Joxe Azurmendi

Pasabide ilunak ditu, izkinaz beteak, eta sabela markatzen duten etxeak, **ajeak** jota, ximur nabarmenak. Alberto Barandiaren

Hala ere ikusgarriak ziren denboraren **ajeak** paretan egindako lan etengabea. Felipe Juaristi

Gaixotasuna eta zauria ez baitira substantzia, haragizko substantziaren **ajea** baizik. Imanol Unzurrunzaga

Bakarrik Iban Zaldua ez dela etxera sartu eta halako asmakizun hordiak biharamuneko **ajearekin** burmuinetik ezabatzen dituen lurtar arrunta. Berria - Kultura

Ezkutuko ekonomiaren eta merkataritzaren **ajeak**. Berria - Harian

Lanbidearen **ajeak**. Paddy Rekalde

"Elikaduraren subiranotasunarekin" eta "egungo kontsumo-gizarteen **ajeekin**" lotu du gasolio profesionalaren gaineko aldarrikapena. Berria - Ekonomia

Azkenaldian sarritan hitz egin da euskal musikagintzaren **ajeez**, baina disketxeek eta musikariek ez dute topatu oraindik euskal musika leize ilunetik aterako duen giltza. Berria - Kultura

Aznar M-11ren **ajeak** jota dago, baina ez da bakarra: BBVAko (- %1,11) FG ere bide beretik doa. Berria - Ekonomia

Beharbada Caro Baroja bera ere ez da guztiz libratzen kritikatzen dituen **ajeetatik** (inor ez da hemen erraz salbatzen). Joxe Azurmendi

Apirilaren 2an Haur eta Gazte Literaturaren Nazioarteko Eguna ospatuko dela aitzakia harturik, haur eta literaturaren bertuteez eta **ajeez** hitz eginarazi diogu. Berria - Kultura

Bilbo Zaharra Forumak antolatu du hitzaldia, euskal kulturaren **ajeei** buruzko zikloaren barruan. Berria - Kultura

5 ***aje-ume***

Bertan idorotakoak ditu euskararen thaesaurusean gehien estimatzen dituen eleak: aketza (ninfómana), baina batez ere Zolaren eleberri batetik aterea dirudien hau, sakristia lurrina kendu gabea: **aje-umea** (hijo tarado, "los hijos del sábado", "alkoolez ondo beteta sortuak"). Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aje eta (5); **ajea da** (3); **ajeak eta** (3); **ajeak jota** (4); **ajeren bat** (4); **ajerik ez** (3); **batuaren ajeak** (5); **eta ajeak** (3); **euskara batuaren ajeak** (5)

---

ajeatu, ajea(tu), ajeatzen *(orobat **ajetu**)* **1** da/du *ad* ajeak jo.

Kafetegitik atera nintzenean, Nekaneren amona ikusi nuen, **ajeatuta** ikusi ere. Iñaki Arranz

Adinaren ondorioz **ajeatua**. Isabel Arrigain

Tokia, bertzalde, ez nuen gogoko, eta ingurunea are gutiago: etxe zahar bat auzo zahar batean, etxe eta auzo zahar guztiek dituzten keria eta akats guztiez **ajetua**. Aingeru Epaltza

Kopeta **ajeaturik** eta eztarria espartin baten azpia baino lehorrago izaki, sukaldera sartu zen gero, hozkailuan freskagarriren bat aurkituko zuelakoan. Josetxo Azkona

Berarengan eta beraren bidez ustekabeko poza eta berritasun santua sortu da lurbira osoan: erlijio zaharraren muskilak aspalditik **ajeatuak** eta zahartuak zeuden adarrak biziberritu ditu. Askoren artean

2 (era burutua izenondo gisa)

Vermonteko landa-aldeko bigarren mailako errepide batean ez aurrera ez atzera geratuta geundela, zer egin genezakeen Al biek gure makina **ajeatu** hura berpitz zedin lan egiten zuten bitartean? Oskar Arana

Kultura txirotze hari bai iritzi zion benetan tristea eta penagarria, eta analfabetismoaren atarian sentitzeak seko hondoratu zituen haren animo lehen ere **ajetuak**. Karlos Linazasoro

---

ajedrez *(ETCn **38** agerraldi; orobat **xake** ETCn **6.238** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **xake** agertzen da)* *iz* xakea, xake jokoa.

Getxo-Areeta: Juan Maria Atutxak, Joseba Azkarragak eta Juan Jose Ibarretxek ekitaldi politikoa eskainiko dute, **Ajedrezaren** plazan, 19: 30ean. Berria - Harian

---

ajenaezin *izond*

Kodea eskuan, Zunni doktoreak nire Aleph-a **ajenaezina** dela frogatuko du. Juan Garzia

---

ajenda ik **agenda**.

---

ajente ik **agente**.

---

ajentzia ik **agentzia**.

---

ajetsu *izond* ajeez betea.

Gazteak, ilea sare batean bildurik, akituak ageri ziren jadanik, beren bizimodu latza zela eta; zaharrak, berriz, **ajetsuak** zeuden, zimelduak, begitarteak gorri, goian bi punta utziz loturiko buruzapi horiaren azpian. Karlos Zabala

Tradizio laburreko hizkuntza batek aukera ugari eskaintzen ditu ia ezerezetik sortzeko, eraikitzeko, ikertzeko, esperimentatzeko, jolasteko, tradizio higatu eta **ajetsuegi** baten zamarik gabe bidea egiteko. Patziku Perurena

---

ajetu ik **ajeatu**.

---

ajilitate *iz* zalutasuna.

Pena esaten dut, ze ahotsa horrela edukita ere **ajilitateak** erabat garbi egin zituen eta papera buruz domeinatzen zuen. Berria - Kultura

---

ajoarriero *(corpusean ez dago; ETCn **124** agerraldi)* **1** *iz* bakailao idorrez eta barazkiez osatutako jakia.

Ajoarriero patataz, baratxuriz, arrautza arrautzez eta olioz osatutako Nafarroa nafar pasta da, almerizean egindakoa. Pasta hau arrainekin jan daiteke, normalean bakailaoarekin. ETC-entziklopedia

Nerabe zenean dastatu zituen estreinakoz Josefaren zuritabeltza, tripakiak, **ajoarrieroa** ; baina inondik ere anderraiak zituen gustukoen. ETC-literatura, saiakera

Carmen, Beroizen emaztea zena, hor ibili omen zen **ajoarriero** kazuelakadak eta salda mundu guztiarentzat prestatzen. ETC-literatura, saiakera

Gau hartan errioaz bestaldeko ostatu txiki hartan afaldu -hik **ajoarrieroa** , nik txuri-ta-beltza eskatu, baina, orduan askotan bezala, erdibana hartuz- eta lotara joan gintunan berehala. ETC-literatura, saiakera

Behin baino gehiagotan barretxoa erreprimitu behar izan dut -karta albo batean utzi eta bigarren plater gisa **ajoarrieroa** eskatu duenean, adibidez-; bota didan begiradagatik, Sebas jakitun dela ohartu naiz. ETC-literatura, saiakera

Ajoarriero kaxola bana garbitu genuen, eta pintako ardo botila hustu ere bai. ETC-literatura, saiakera

Gogoan izango dituk, besteak beste, hark gobernaturiko patata-tortila, paella, calderete, **ajoarriero** eta enparauak, zein baino zein gozoagoak. ETC-literatura, saiakera

Janariaz zer esanik ez, **ajoarrieroa** litzateke gure gumboa, eta edariaz hobe ezer ez esan, ez da faltako-eta Mardi-Grassik zintzurra ederki bustitzeko. ETC-prentsa

Nobel eta Pulitzer saridunak gogoko zituen beste bi plater ziren **ajoarrieroa** eta bakailaoa bizkaitar erara. ETC-prentsa

2 ***bakailao ajoarriero*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Bakailao ajoarriero bakailao idorra eta barazkiek osatutako platera da; batez ere tomate eta baratxuriak. ETC-entziklopedia

---

ajola ik **axola**.

---

ajubeta *iz*

Ajubetak zein arrakadak, biak ala biak, euskararik ederrenetarik dira. Iñigo Aranbarri

Honezkero jakingo duzu, Lekeition zaudela, oinetako txingolak askatu bazaizkizu, ez zaizkizula lokarriak askatu, **ajubetak** baizik. Iñigo Aranbarri

---

ajustadore *iz* makina eta kidekoetan, metalezko piezak doitzen edo ahokatzen dituen langilea. ik **ajustatzaile**.

Erreskondoko auzo eskolan, hamalau urtera arte ibilita eta gero, Mungian **ajustadore** egin zan. Xabier Amuriza

---

ajustatu, ajusta, ajustatzen *(corpusean ez dago; ETCn **40** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **doitu**, **aurrindu**, **egokitu** eta **ahokatu** ageri dira)* _etc_ **1** du *ad* doitu, egokitu.

Arras bertikaleko bizkarrekoa inkomodoa da; ideala, atzeranzko angulo leunki okertua izaten da, nahiago pixka bat kurbaturik, bizkarrezurrari **ajustatzeko** ongi. ETC-literatura, saiakera

Marinak bazekien Tomeu ere estandar horretara **ajustatzen** zela, baina horretatik beste emakume batekin ibili zela pentsatzera alde handia zegoen. ETC-literatura, saiakera

Eibartik etortzen zen materiala eta hemen **ajustatu** eta akabatu. ETC-literatura, saiakera

Horregatik, kokatu aditzak, funtsean, kokaratu esan nahi ote duen nago, hau da, zernahi gauza konbexo gogor, bere kokagune konkabo gogorrean doitzea, sartzea, asentatzea, **ajustatzea** ... ETC-literatura, saiakera

Tekniko batek konpondu zuen arazoa, baina sokak berak afinazioa segituan galtzen zuelarik, Zimermanek **ajustatu** behar izan zuen sonatako mugimenduen artean. ETC-prentsa

Laster, gidatzen dugun bitartean uneoro irratiaren diala **ajustatu** behar izatea iraganeko kontua bihurtuko da irrati mota berriei esker. ETC-prentsa

Egunero ibili behar duzu zure ideia nagusia **ajustatzen** , moldatzen, egokitzen, zuzentzen. ETC-prentsa

Argindarraren faktura ahalik eta ondoen **ajustaturik** izateko, hainbat datu ezagutu behar dira, eta garrantzitsua da ere etxeetara joaten diren komertzialen aurrean nola jokatu behar den jakitea. ETC-prentsa

Polita izaten da ikustea nola tailerrean parte hartzen dutenek elkarri azaltzen dioten zer egin gurpila zulatuz gero, adibidez, edo frenoak nola **ajustatu** . ETC-prentsa

Udan sartuko naiz ni laborategian, koloreak eta horrelakoak **ajustatzeko** helburuarekin. ETC-prentsa

Hau da, behin onartu baldin bada badaudela gutxienez erlatiboak ez diren printzipio moral batzuk, gure praktika eta moduak molde lokaletara **ajustatzea** moralki bideragarria litzateke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sintrom-dosia sarri **ajustatu** behar da, eta, horretarako, sarri egin behar dira kontrolak. ETC-entziklopedia

Horrela, kontrol-sistemaren errore-seinalea une bakoitzean **ajustatzen** den balioaren menpe geratzen da soilik. ETC-entziklopedia

Ispilua **ajustatu** egin behar da irudi erreala eta isla jarraipen bat izan arte. ETC-entziklopedia

2 (era burutua izenondo gisa)

Sentitzen ari naizena nahiko **ajustatua** dela uste dut. ETC-literatura, saiakera

Lore txikiz betetako alkandoraren gainetik belusezko txaketa morea zeraman, galtza **ajustatu** beige batzuekin ondo bat eginda, larruzko bota sendo batzuk errematatuta. ETC-literatura, saiakera

Horregatik hain zuzen, berrargitalpen ugari izateak ez du nahitaez tirada handia adierazten, **ajustatua** baizik. ETC-literatura, saiakera

Gehiegizko gorputz gantza OR **ajustatuak** =1,77; %95 KB, 1,05-3,01; P=0,034; nutrizioarekiko jarrerak OR **ajustatuak** =1,13; %95 KB, 1,05-1,21; P=0,001. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dena den, Londres ere ez zen atzean geratzen, baina horretarako kreditu eta maileguetan prezio **ajustatuak** eskaini behar izan zituen. ETC-entziklopedia

---

ajustatzaile *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* makina eta kidekoetan, metalezko piezak doitzen edo ahokatzen dituen langilea. ik **ajustadore**.

Ni **ajustatzailea** nintzen lantegi batean, egun hartararte. ETC-literatura, saiakera

Enpresa askok gure ingurutik kanpora jotzen du tornugileak, **ajustatzaileak**, iturginak, fresatzaileak, galdaragileak, hodigileak, mekanikariak eta elektrikariak lortzeko. ETC-prentsa

Aurrerantzean, langileak ez dira torneroak, **ajustatzaileak**, eta abar izanen, produktu baten ekoizpen-talde baten partaideak baizik. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

ajuste *iz* doitzea.

Buenos Airesko kontsentsua Lularen nazioarteko politikaren ildotik doa: garapena lehenesten du, **ajuste** estrukturalaren aurretik, lana eta gizarte justizia bilatzea, alegia, eta ez horrenbeste egonkortasuna Berria - Mundua

---

ajustiziatu *iz* exekutatua izan den pertsona.

Pertsona arrunt hori toki dramatikoan ez baldin badago kasualitate hutsez ez dagoela dirudielarik, gaur zinemara etorri delako, hain zuzen, kondenatua gezurretan edo egiatan nola hil zen ikustera, edo aktore ospetsuak hiltzen zelakoa nola egiten zuen, edo egiatan eta dokumentalki, izenik gabeko **ajustiziatua** nola hil zen ikustera. Jon Alonso

Pikota habea: **ajustiziatuen** buruak jartzen ziren tokia. Patxi Ezkiaga

---

akaatu ik **akabatu**.

---

akabaera *iz* bukaera, amaia.

Goseak hiltzen bizi diren milioika haurrek ongi merezia dutela heriotza, HIESAren aurkako botikarik ordaindu ezin duten Afrikako milioka beltzek, Asiako milioika prostitutek, Ifar eta Hego Ameriketako indiar dotore haien oinordekoek ongi merezia dutela **akabaerarik** lazgarriena, txaboletan arratoiekin bizi diren milioka txiroek ongi merezia dutela egokitu zaien bizitza ustel eta miserablea. Pako Aristi

---

akabaezin *izond adkor* ezin akabatuzkoa, hilezina.

Animalia hura **akabaezina** zela sinetsita. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

akabaila 1 *iz* bukaera, amaiera.

Seguraski aro zoriontsuaren **akabaila** alde-aldean sumatzen nuelako hartu nuen hain gaizki Kristinaren haurdunaldia. Aingeru Epaltza

Guztiak so gelditu dira, **akabaila** jakineko film zaharrak ikusten direnean bezala. Aingeru Epaltza

Zorionez, nire engaiamenduaro laburrak gisako trantzerik bizi gabe izan zuen **akabaila**. Aingeru Epaltza

Orain, jaitsaldiaren **akabailan**, bezperako liluraren oroitzapenak ahantzarazi dio, une batez, belaunetako mina. Aingeru Epaltza

Akabailan, neronek proposatuta, himno batzuk kantatu genituen, ez arras ozenki badaezpada ere. Aingeru Epaltza

2 *akabaila eman* bukatu.

Aurkitzailea gure ama izan balitz, semearen adiskideen apeta bitxiez marmarika **emaen** zion **akabaila** auziari: "mairuen lika iluna manatu? Aingeru Epaltza

Bederatziak hogeita bortz guti; denbora aski eta abasto lan bururatu gabeari **akabaila emateko**. Aingeru Epaltza

Lau ordu beharko ditugu lan honi **akabaila emateko**. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akabaila emateko** (3)

---

akabamendu *iz* bukaera, amaiera.

Guztiei gertatzen zaie eleberri honetan, eta narratzaileak akiturik idazten digu, itzaltzen ari denaren axolagabetasun goxoaz, sentibera izaki larregi nozitutakoaren **akabamendu** eta adio aldarteaz. Markos Zapiain

---

akabantza 1 *iz* bukaera, amaiera.

Munduaren **akabantza** litaikek laster eta Lur-ek lana berriz hasi beharko likek. Michel Oronoz

Baina egun haiek ere handik gutira izan zuten, mundu honetan guztiak bezala, fina eta **akabantza**, eta, horrela, bertze egun hura oroit dezaket, noiz eta zorigaitzak atrapatu eta bere egin baininduen, berehala ohartuko zaren bezala. Joan Mari Irigoien

-Hona hire bidaiaren **akabantza**. Aingeru Epaltza

Inork ez ditu umeak zafratu, gaiztaginen **akabantza** zelakoa den gomutaraztearren umeei negarra eragiteko usadioak baino indar handiagoa izan du zure dotoretasunak. Koldo Izagirre

Eta derradan, bide batez, ezen, hainbertze fortuna gaixtoren artean, zortea neure alde eta fabore ere izan nuela azkenean, noiz eta lehen urtearen **akabantzan** aita Leokadio nobizio-maisu kargutik kendu baitzuten eta igorri, haren orde, aita Tommé baxenafartarra, zeina baitzen latineko irakaslea ere. Joan Mari Irigoien

Ministroaren agintea, bertzalde, otoitzaren **akabantzarekin** itzaltzen zen. Aingeru Epaltza

Oh, Jainko eternala! Idekizkitzu gure arimako begier **akabantzarik** ez dien denboraren bortak, nun gure arima eternalak gozatuko baitu sekulako urostasun bat, edo esperimentatuko betiko tormentu bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ikusten al duzu **akabantzako** *t* hori? Joan Mari Irigoien

2 ***akabantza eman*** bukatu, amaitu.

Aste batzuk geroago, ordea, aitatxiri hotsa etorri zitzaion Donapaleutik: hainbertze urtetako behin-behinekotasunari **akabantza eman** eta Garrüzerako behin betiko kapitaina izendatzeko pentsamendua omen zerabilten gortean. Aingeru Epaltza

Eta, kontakizunari fina eta **akabantza emaiten** ziola, erran zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Hartan, Baionako apezpikuak, hitz erdika bazen ere, iradoki zion deserriratzeari **akabantza emateko** parada zuela. Aingeru Epaltza

Nire nahasmenduari esku batek **eman** zion **akabantza**, besaburuan pausatuta. Aingeru Epaltza

Joxe Aberasturi bizkaitarrak gizon zuri haietarik bat akabatu zuen bere ezpataz, baina bertze batek tiro egin zion bere arkabuzarekin eta halaxe **eman** zion Joxek fina eta **akabantza** bere munduko aldiari. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta akabantza** (5); **fina eta akabantza** (4)

---

akabatu, akaba(tu), akabatzen *(orobat **akabau** g.er. eta **akaatu** g.er. eta **akatu** g.er.)* **1** da/du *ad* amaitu, bukatu.

- **Akabatuko** nintzela uste nian -esan zidan, dardara joan zitzaionean-. Koro Navarro

Lana **akabatu** baino bizpahiru egun lehenagokoa izan zen ustekabekoa! Joan Mari Irigoien

Bide honetarik mundua laster **akabatuko** da. Joan Mari Irigoien

Baina ez, kontua ez da hor **akabatzen**: [...]. bere ukabila goratzen zuela, baita boza ere, **akabatu** zuen-: [...]. Joan Mari Irigoien

Don Frantziskok goizetik emaiten zigun eskola, eta eskola haiek eguerdiko angelusarekin **akabatzen** zituen. Joan Mari Irigoien

Bai bukaera xelebrea Jacques Kohnena, poloniar Otelo batek **akabatua**. Koro Navarro

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Irri-karkaraka **akabatu** genuen biok. Joan Mari Irigoien

3 du *ad adkor* hil. (pertsonak)

Erreketeek **akabatu** baitzuten hura, 36ko gerra zibilean, Donibanen sartu bezain laster. Joan Mari Irigoien

Maese Peppo, bigarren borreroa, Porta Castelon **akabatu** zuten labankadaz Cencitarren heriotzatik hilabetera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hori entzunik, aitak bertan behera utzi du semea **akabatzeko** asmoa. Martin Anso

Aitaren aurka ibili zen denbora batean, hura boteretik nola botako, anaia bat **akabatu** zuen -agintea eskuratzeko estorbu egiten ziolako, itxuraz-, eta ama kartzelara bidali zuen Kristo aurreko 111. urtean agintera iristeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jonatanek jo eta bota egiten zituen filistearrak, eta, atzetik, ezkutariak **akabatzen** zituen. Elizen arteko biblia

Alemanek lurraldeko judu guztiak **akabatzen** dituzte, haurrak eta adinekoak barkatzeke. Felipe Juaristi

Honezkero, jakin beharko zenuke thrilleretan ez dela arrazoi handirik behar jendea **akabatzeko**. Javi Cillero

Espainiar bandera harro altxatu, eta moroak **akabatzera**. Txillardegi

Gu hartan ari ginelarik, Klausek Dabiden izar handi bat margotu zuen betun marroiaz, eta, azpian, *Juduak **akabatu** !* idatzi zuen. Anjel Lertxundi

Neuk **akabatuko** dut telegrafista aliatuzale hori. Koldo Izagirre

-Beren ama ere **akabatuko** liketek lau sosen truke. Aingeru Epaltza

-Zergatik **akabatu** zuten odol hotzean? Edorta Jimenez

-Gizotso batek **akaba** ditzake adarbakoitzak? -galdetu zion Harryk. Iñaki Mendiguren

Beren herriko ero batzuek ez dutela bakerik izango polizia, epaile eta politikari guztiak **akabatu** arte? ez nuen filmetan atso bat **akabatu** nahian agertu ohi diren asasino patetiko horiek bezalakoa izan nahi. Unai Iturriaga

-Ipurdian hortzak haziko zaizkidak -esan zidan- errege-erreginak eurak gudara doazela eta halako batean elkar **akabatu** dutela aditu orduko. Edorta Jimenez

-Aldapa honek **akabatu** egingo nau. Javi Cillero

Eta ez dakin noiz eta zein bazterretan **akabatuko** duten. Jon Maia

Erasorik jasanez gero, ikasitakoaren arabera norberaren burua defendatu, eta aurrera; suertea izanez gero, erasotzailea **akabatzea** eta puntuak -eta, beraz, euroak- eskuratzea suposatzen zuen horrek. Iban Zaldua

Gizonak banan-banan **akabatzen** ditu, tiro baten eta hurrengoaren artean behar beste denbora hartuz. Oskar Arana

Alferrik otoiztu nituen **akaba** nintzaten. Juan Garzia

Litekeena zen, bada, gauzak okertzea eta ni jipoitzea, edota zakur zehatu mixerable bat bezala jo-eta **akabatzea**. Karlos Linazasoro

Egin dezakezuen hoberena da lehenbailehen **akabatzea**, gorpua erre, hondakinak komuneko zulotik behera bota, eta kateari eman. Pello Salaburu

Nire haserrea piztuko da haien aurka, eta denak **akabatuko** ditut.-Non da etsaia mailuka **akabatzen** duen Mailu hori? Jose Antonio Mujika

Zakur errabiatua bailitzan, **akabatua**. Txillardegi

-Baioneta-ukaldika **akabatu** genituen denak -esan zuen gizonak irribarrez. Koro Navarro

Handik segundo batzuetara, ziplo **akabatzen** dute animalia aire-pistolaz garunean sartzen zaion iltze batez. Xabier Olarra

Basamortura bazterturik, sarritan errudunei albo egin eta errugabeak bidegabeki **akabatzen** dituen gezi hori astinduz sumintzeko. Xabier Amuriza

-Eusten ez badidazue, **akatu** egingo dut! Koldo Biguri

4 (animaliak)

Lehoiak eta hartzak **akabatu** ditu zure morroi honek; Krimena ote da ausiki hiltzaileko narrastia **akabatzea**? Jose Antonio Mujika

Ezin du katua basamortuan utzi, koioteak **akabatuko** du bestela. Javi Cillero

-Hartz bat **akabatuko** dut! zeren erran baitzuten ezen zezen haietarik bat edo bertze ikusleen esku utzi eta beraiek sastatu eta **akabatu** beharko zutela. Joan Mari Irigoien

Sukaldeko burdina eskuan hartu, eta kolpe batez **akabatu** zuen katua. Joan Mari Irigoien

Saguak **akabatzeko** pozoia bota zuen jaki-gordailuko harraskaren azpian. Mirentxu Larrañaga

Arratoiak **akabatzeko** neurri latzak hartu behar direla. Gotzon Garate

Goiztar ibiltzeak zuen kalte hemen: agudo **akabatuko** zuten armiarma. Pello Zabala

Akabatu egingo haut. Xabier Paya

Honetan, **akabatu** egin zuten laugarren piztitzarra; haren gorpua txikitu eta sutara bota zuten. Elizen arteko biblia

Europar eta amerikar askori zakur okela jateko zakur **akabatzea** ankerkeria iruditzen zaio. Gotzon Garate

Orain oinaztua nola sortzen da eta halako bultaz, ezen zartako batean dorreak arraila baititzake, etxeak eraits, habeak eta zutabeak erauz, heroien monumentuak loka eta uzkail, gizakiak hil, aziendak aldran **akaba**? Xabier Amuriza

Izan dira, noski, beste hainbat hilketa: epaileak garbitzen jo eta ke dabilen hiltzaileak beste bat **akabatu** du, adibidez. Jon Alonso

Animaliari bizia kendu beharra dagoenean, gizakiak **akabatu** egiten du animalia hura. Iñaki Segurola

Baztertuak genituen ordurako hainbat tona esmalte beltz, zeinak, saiaturiko zuzenketa guztien despit, eman ondoren likatsu irauten baitzuen eperik gabe, euli **akabatzeko** paper goibel baten gisa. Juan Garzia

5 *irud*

Esan liteke kasik, olagarro bat edo oroitzapen andana bat **akabatzea** baino askoz errazagoa dela gizon bat **akabatzea**, Isabelle. Harkaitz Cano

Orain, Basauriko presondegitik pasa ondoren, ez zaio, ez, orduko harrotasunaren arrastorik sumatzen, **akabatuta** dago gizona. Patxi Iturritegi

Nekeak **akabatzen** nengoen, eta nahiz eta jakin hura izango zela nire ohean lo egingo nuen azkeneko eguna, berehalaxe loak hartu nuen. Josu Zabaleta

Ikusleek hezlea odola zeriola ikusi zuten, eta beldurrak **akabatzen** altxatu ziren, ihes egiteko. Koro Navarro

Donostian, liberalak beldurrak **akabatzen**; gu indarrean noiz sartuko zain. Txillardegi

Bestaldetik, jendeak barrez eta begiak zabal-zabalik begiratzen zion, bera, goseak **akabatzen** eta ahulduta, lasto gainean zetzan bitartean. Iñaki Mendiguren

Tira, ni goseak **akabatzen** nago. Lopez de Arana

-Harry gosez **akabatzen** ari ziren, ama! -esan zion Georgek. Iñaki Mendiguren

Ellen hotzak **akabatuta** zegoen. Lopez de Arana

-Aurpegia zikindu duzu, **akabatuko** zaitut -esan zion Patriciak oharkabean ia. Koro Navarro

Eskua gora eta behera zerabilkion aluan, eta neskak oihu egin zuen, kiribilo bat eginda: **"Akabatu** egingo nauzu! Juan Martin Elexpuru

Akabatu egingo nauzu!". Juan Martin Elexpuru

Eskua gora eta behera zerabilkion aluan, eta neskak oihu egin zuen, kiribilo bat eginda: **"Akabatu** egingo nauzu! Juan Martin Elexpuru

Akabatu egingo nauzu!". Juan Martin Elexpuru

Basamortura bazterturik, sarritan errudunei albo egin eta errugabeak bidegabeki **akabatzen** dituen gezi hori astinduz sumintzeko. Xabier Amuriza

-Baioneta-ukaldika **akabatu** genituen denak -esan zuen gizonak irribarrez. Koro Navarro

Handik segundo batzuetara, ziplo **akabatzen** dute animalia aire-pistolaz garunean sartzen zaion iltze batez. Xabier Olarra

6 *arkakusoak akabatu*

Bordelen, ene leihoak horma handi batera ematen zuen; Baionan, zuhaitzak zeuzkan karrika batera; Donostian, **arkakusoak akabatzen** zituen atso batengana. Koldo Izagirre

7 *goseak akabatzen egon*

Gainera, gehitu zuen, Lucy hain zen jatun handia, ezen ordurako, ziur asko, **goseak akabatzen egongo** baitzen nolanahi ere. Oskar Arana

Goseak akabatzen egon behar duzu, gajoa. Lopez de Arana

8 *gosez akabatzen egon*

"**Gosez akabatzen egongo** zara", esan zuen Tomek azkenean, eta, orduan, atea guztiz ireki eta gelatzat zuen hilkutxa hits hartara sartzen utzi zion. Oskar Arana

9 *hotzak akabatzen egon*

Denaz gain **hotzak akabatzen nagon**. Txillardegi

Hotzak akabatzen nago, eta katakume bat bezain ahul. Mirentxu Larrañaga

Xirri **hotzak akabatzen zegoen**, eta Belarri eta Agirrerekin joan zen. Rafa Egiguren

Hotzak akabatzen nengoen banku batean, han nonbait bildutako egunkariak irakurtzen. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

akabatu arte (10); **akabatu baino** (7); **akabatu baino lehen** (5); **akabatu behar** (17); **akabatu beharrean** (4); **akabatu berria** (4); **akabatu bezain** (4); **akabatu da** (4); **akabatu ditu** (4); **akabatu dituzte** (6); **akabatu du** (6); **akabatu egin** (34); **akabatu egin behar** (8); **akabatu egin zuten** (6); **akabatu egingo** (38); **akabatu egingo haut** (7); **akabatu egiten** (13); **akabatu eta** (21); **akabatu ez** (6); **akabatu gabe** (5); **akabatu izan** (5); **akabatu nahi** (22); **akabatu nahi izan** (4); **akabatu nuen** (10); **akabatu ondoren** (7); **akabatu orduko** (4); **akabatu zela** (4); **akabatu zituen** (9); **akabatu zituztela** (5); **akabatu zituzten** (9); **akabatu zuela** (6); **akabatu zuen** (43); **akabatu zuenean** (4); **akabatu zuten** (32); **akabatuko diat** (4); **akabatuko dut** (4); **akabatuko zaitut** (5); **akabatuko zuela** (4); **akabatzen ari** (7); **akabatzen diren** (4); **akabatzen dituzte** (4); **akabatzen duen** (4); **akabatzen dute** (4); **akabatzen eta** (4); **akabatzen nago** (12); **akabatzen nengoen** (5); **akabatzen zituen** (5); **akabatzen zuen** (5); **arratoiak akabatzeko** (6); **arre emea akabatu** (4); **bat akabatu** (20); **bat akabatzeko** (6); **bat akabatzen** (4); **batean akabatu** (4); **batek akabatu** (6); **beldurrak akabatzen** (19); **beldurrez akabatzen** (5); **berean akabatu** (4); **bertan akabatu** (13); **bertan akabatuko** (12); **bertan akabatzeko** (4); **denak akabatu** (5); **emea akabatu** (4); **ere akabatu** (6); **eskola akabatu** (5); **eta akabatu** (30); **eta akabatu egin** (5); **eta akabatu egingo** (4); **eta akabatzeko** (4); **eta akabatzen** (4); **eta bertan akabatu** (6); **eta hala akabatu** (4); **gehiago akabatu** (4); **gizon bat akabatu** (4); **goseak akabatuko** (4); **goseak akabatzen** (21); **goseak akabatzen nago** (7); **gosez akabatzen** (4); **guztiak akabatu** (4); **hala akabatu** (5); **hantxe akabatu** (5); **hartan akabatu** (5); **hegazti akabatu** (7); **hegaztiak akabatzeko** (5); **hotzak akabatzen** (9); **hotzez akabatzen** (4); **ia akabatu** (4); **nola akabatu** (8); **tiroz akabatu** (7); **tiroz akabatu zuten** (4)

---

akabatzaile *izond/iz*

Gizon bat hiltzea pertsona praktikoen lana da noski, baina hoztasun horrek, tresna **akabatzaileari** jantzi izena emoten dion gizon honek. Problema horien konponbidea ez da itxitura elektrikoak ezartzea, baizik eta justiziazko neurriak hartu eta terrorismo-bortizkeriaren sortzaile eta biktimen **akabatzaileei** eskuak lotzea. Koldo Izagirre

Atzealdera joateko pasabide estua zegoen sukaldeen aurretik, eta behiak eta Manolete gizajoaren **akabatzailea**, jendea ikusi orduko, aurreraka oldartzen ziren, jana zetorrelakoan. Joxean Sagaztizabal

---

akabatze *iz* amaitzea, bukatzea.

Akabatze hura ez zen, zinez, irri eragiteko modukoa, baina, hargatik beharbada, nola ez baikeunden bat-batean serios jartzeko puntuan, are handiagoak egin ziren gure irri-karkarak. Joan Mari Irigoien

Zirrara sorrarazteko ahalmena eranzten zion baserritarrak filmeko hildakoari, heriotza ez zen **akabatze** hark ez zezan inor uki Baina, hori bai, **akabatze** duin bat izan dadila. Imanol Zurutuza

---

akabau ik **akabatu**.

---

akabera 1 *iz* bukaera.

Isilunea tragikoa iruditu zitzaidan: **akabera** zen, heriotza. Monika Etxebarria

Zaldi bat horrela hozten denean, **akabera** izaten da. Koro Navarro

Banan-banan ia guztiak drogaren atzaparretan jausi ziren, eta hura izan zen **akabera**. Berria - Harian

Gure produktuen kalitatea kaltetua izango da eta hori gure baserrientzako **akabera** izan daiteke. Berria - Euskal Herria

Akabera hurbil denean, ez da gehiago oroipenaren irudirik gelditzen; soilik hitzak gelditzen dira. Juan Garzia

Ez zuen jada irakurtzen "Dzurnàl de Dzenève", ez zuen jada espero faxismoaren **akabera** edo Mussoliniren heriotza, aspaldi zenduak baitziren Mussolini eta faxismoa. Fernando Rey

Ibili bat egitera irteten zarenean inork jarraitzen ez badizu, munduaren **akabera** gertu dagoen seinale. Patxi Zubizarreta

Milenioaren **akabera** argitu nahi izan zuen *La cultura en euskera* izeneko libelo hagitz famatuagatik. Iñaki Segurola

Metafisikaren **akabera** akabatzera, hirugarren, giza zientzia moderno guztiak etorri dira, "faisant de l'histoire le mode d'être fondamental de l'homme". Joxe Azurmendi

Hementxe du hiltzea eta **akabera** gogoetatxo txuri-beltz honek. Iñaki Segurola

Bolada guztiek izaten ditek beren **akabera**, baita txarrenek ere. Anjel Lertxundi

Amodio orok oinazea du **akabera**. Fernando Rey

Azpeitian du **akabera** Euskadiko Txapelketak. Berria - Kirola

Balbok eta Lolak azkeneko honentzako lan bati buruz egiten zituzten hizketaldiek beti "presondegian" zuten **akabera** . Fernando Rey

Inperio austrohungariarreko poetak bizitzaren karelean bizi izan dira, Rothen pertsonaiak monarkiaren ekialdeko aldirietan bezala; zain bizi izan dira edo **akabera** baten oroitzapena berritzen. Anjel Lertxundi

Paul Louis Lande karrikako egoitzaren lana murriztu nahiz, halako ziklo bati **akabera** ari nintzen egiten. Piarres Aintziart

Latex gorriko **akabera** du altzairuzko egitura erraldoiak. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egin dezatela nahi dutena, ustel daitezela nahi badute, baina ez daitezela liskartu, horrelakoetan **akabera** txarra izaten da-eta. Josu Zabaleta

Izan ere, bere **akabera** tragikoaren oihartzuna dela eta, Angela Ugarte benetako mito bihurtzeko bidean jarri zaigu. Argi eta garbi nian **akabera** posibleena kanposantuan zegoela. Patxi Iturritegi

Sekulako izua nion oinaze fisikoari, gorputzaren sofrimendu lazgarriari, eta bestetik, izua nion **akabera** ezduin bati, desagertze komiko zantarrari. Karlos Linazasoro

Ziur baitzeuden, eta une hartan sekula baino ziurrago, Ala Jainkoa baino boteretsuagoa zela, dorre madarikatuak eduki zuen **akabera** gaiztoan ikusten ahal izan zen bezala. Jon Alonso

Auziak **akabera** makurra izan zuen eta biak kartzelaratuak izan ziren. Patxi Zubizarreta

Nolatan halako **akabera** bat-batekorik? Patxi Zubizarreta

Hau jasotzen duzunerako, medikuek aurreikusi didaten bizialdi laburrari **akabera** azkarxeagoa emana izango diot. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala bada, Ali Baba, emaztea, alarguna eta Morgianaren artean, Kasimen zorigaiztoko **akabera** ongi gordea eta isildua izan zen. Patxi Zubizarreta

Kalkulu hotza, aurrez pentsatu gabe jauzika egiten duten orbanak, eraikuntza matematiko zehatza (agerikoa edo ezkutukoa), marrazketa isila, garrasi egilea, arretazko **akabera** , koloreen fanfareak, biolinaren pianissimoa, azalera handiak, lasaiak, astunak, lehertuak. Josu Zabaleta

Kurbadun **akabera** izango dute gela horiek, eraikinaren atzealdeko ertzak biribilduz leundu gura izan ditu-eta Moneok. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Eta nik neuk ere **akabera** mota bera izango ote dudan kezkak asaldatu nau bortizki. Txillardegi

Euskal zaleei aurtengo Tourreko lehen zirrarak sortu ostean, eta **akabera** marra gurutzatu bezain laster oraindik arnasestuka, Iker Floresek azken metroetan jendearen usteak egia zirela erakutsi zuen: sasoian nago eta aukera gehiago izango dira. Berria - Kirola

4 ***akabera eman***

Triskantza izugarri honi **akabera eman** behar zaio. Patxi Zubizarreta

Hala bazen laster eman behar zion **akabera** . Migel Angel Mintegi

Cannelle-ren heriotzak berez zaila eta larria zen egoerari **akabera eman** diola uste du Elosegik: "Cannelle ez zen nahikoa bertako hartz arrearen populazioa aurrera ateratzeko, baina ezinbestekoa zen". Berria - Euskal Herria

Denboraren egunsentian, Kainek Abelen kontra jaurti zuen harria izan zen, eta gaur egun imajinatzerik ere ez daukagun hainbat gauza izango da aurrerantzean ere, eta baliteke gauza horiek azkenean **akabera ematea** gizonei eta gizonen patu hain mirarizko eta hain hauskorrari. Juan Garzia

Hilabetetan barrena Armada liberalak, hiritik mugitu ezinik egon ondoren, bat-batean setialdiari **akabera ematea** erabaki zuen. Txillardegi

Saiatu da Voeller gol lehorteari **akabera ematen** . Berria - Kirola

Gaurko besta egunari **akabera emateko** erromeria izanen dute Larrabetzura joaten diren guztiek. Berria - Kultura

Bizi txarrak eta seme-alabek **akabera eman** ohi diete gure emakumeei eta 50 urtetan zarpail zaharrak dira. Bego Montorio

Bizitzak nahigabeak eta oinazeak arintzeko dohain sekretua izan ez balu, izakiei iraunbizitzeko atxikimendua eman izan ez balie, Abasek **akabera emango** zion bere mundualdiari. Patxi Zubizarreta

Ezikusia egingo ote zion, besterik gabe, eta, urratsa bizkorturik, **akabera eman** ? Patxi Zubizarreta

Gaur Atenasko olinpiar estadioan egingo den amaiera ekitaldiak **emango** dio **akabera** 11 eguneko lehiari.Ez nion behin ere hartaz galdetzen, baina trabes egingo nuke horregatik **eman** ziela **akabera** Danelekin bizpahiru urtez izan zituen harremanei. Berria - Kirola

5 ***munduaren akabera***

Bazter haren izena aditua nuen, eta endelegaturik, menturaz, haren esangura; **munduaren akaberako** lehor-aldea. Edorta Jimenez

2001eko maiatzean EAEn izan ziren hauteskunde autonomikoetan **munduaren akaberaren** atarian geunden, Madrilgo hedabideei erreparatzera behintzat. Txema Ramirez de la Piscina

Isilune bat sortu zen, astuna, **munduaren akabera** gertatzekotan egongo balitz bezala. Xabier Montoia

Zorionez, egongela beheko solairuan zegoen, bestela **munduaren akabera** izango zen. Koldo Biguri

ez duzu zer egin jakingo, eta katastrofeen artean dabilen Buster Keatoni begira geratuko zara, desastrea dela eta eroaren moduan aurrera doala beti katastrofeak ugalduz, bere aurpegi izoztuarekin, harik eta katastrofeak **munduaren akabera** ez direla ohartu arte. Joseba Sarrionandia

Hobeki esan, ibili bat egitera irteten zarenean inork jarraitzen ez badizu, **munduaren akabera** gertu dagoen seinale. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akabera eman (6); **akabera ez** (3); **akabera izan** (4); **akabera izango** (4); **bere akabera** (3); **du akabera** (5); **eman zion akabera** (3); **eta akabera** (4); **munduaren akabera** (10); **zion akabera** (3)

---

akabo **1** *interj* zerbait bukatutzat, ahitutzat jo daitekeela adierazteko hitza.

Eta atea itxia bazen, **akabo** ! Patziku Perurena

-Besterik ez dakit badagoen, baina hori faltatuz gero, **akabo** ! Joxemari Urteaga

Baina nonbait Sirakusarrek, nihaurk bezala funtsean, Euripide nahiago eta gure gizona **akabo** ! Itxaro Borda

Hoa hire baxuarekin Gasteizera, emaiok paketetxoa eskatzen dianari, eta **akabo** ! Unai Iturriaga

- **Akabo** bada! -esan zuen-. Karlos Zabala

Akabo jolasak! Josu Zabaleta

Eta Sidoni esan dio: **"Akabo** zure jolasak, Sidon hiriburu! Neskatxa bortxatuaren pareko egin zaituzte. Elizen arteko biblia

Baina inork arretaz bere osoan begiratuz gero, **akabo** : hura manipulatuta zegoela nabarmen baitzen. Txillardegi

Gaixotasuna sukar ustela bada, **akabo** horiena. Edorta Jimenez

Akabo tristura, malenkonia eta moteltasuna; ongi etorri trufa, bizitasuna eta abiada. Patxi Zubizarreta

Akabo , Akab kapitaina. Harkaitz Cano

Akabo , betiko, eraikitakoaren eta neurtutakoaren arteko elkartasuna. Jon Muñoz

Orduan muturra okertu balu **akabo** , baina aurpegi ona jarri zuela iruditu zitzaidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Akabo , amu hau irentsi zuenean! Pello Zabala

Eta **akabo** , **akabo** elurrak ekarritako goraintziak, lurmentzen hasiko baita agudo. Pello Zabala

Gaur egun **akabo** erudizioa, gaur egun gordetegi-sistema elektronikoak jabetu dira oroimenaz. Karlos Zabala

Urik gabe **akabo** gure alorrak, **akabo** behi eta ardiak, eta gu horiekilan. Herria

Idoia Indian, eta ni hemen; **akabo** gurea. Juan Kruz Igerabide

Postulatu hori gabe, **akabo** Pitagorasen teorema. Jon Muñoz

Azkenean aitortu zidan haren aitak ez zuela inoiz onartuko bere alabak katoliko batekin harremanak ukan zitzan eta beraz "gure amodioa **akabo** da...!". Daniel Landart

Eta orain, gu bion artekoa **akabo** duk. Anton Garikano

Akabo da Hester gaixoarekikoa -errukitu zen Nora- epaileak berak baino askoz ere arrano eta putre sarraskizaleago horiekin, soinekoko A adabaki salagarria baino askoz ere kondena latzagoa erabakia baitute: Hesterren senarra itsasoan, eta Hester haurdun alajaina! Anjel Lertxundi

Akabo zen estepa mugagabe hura, etengabea, zeruarekin bat egiten zuena. Karlos Zabala

Kito betiko, **akabo**. Mirentxu Larrañaga

Oquiñena ala Okiñena izango ote zen ikusteko geneukanean, kito eta **akabo**. Hasier Etxeberria

Akabo eztabaida eta kito. Xabier Paya

Kito, **akabo** hitzaurrea. Karlos Zabala

2 *akabo izan*

- Ez, **akabo duk**, ez diat hirekin jokatutako. Jose Morales

Balakatuz, balakatuz, azkenean aitortu zidan haren aitak ez zuela inoiz onartuko bere alabak katoliko batekin harremanak ukan zitzan eta beraz "gure amodioa **akabo da**!". Daniel Landart

Akabo zen doaneko edaria. Edorta Jimenez

Helikopteraz jin zaitzo bila, bena ordükoz **akabo zen**, erorian hila haintsarri. Herria

Gu jo gintuen laino berak eskandinaviarrak jo zituen bi egun geroago! Pribatutasuna ere **akabo da**, ezin dugu babes hartu gure bizitza pribatuan ere. Berria - Kultura

Akabo zen estepa mugagabe hura, etengabea, zeruarekin bat egiten zuena. Karlos Zabala

Akabo da nitaz. Xipri Arbelbide

Akabo zen irrikaz itxarotea North Star edo garaipen baten albisteak. Anton Garikano

3 *hasi eta akabo* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Besterik gabe, hantxe **hasi eta akabo**. ETC-prentsa

- Nahiago dut beste bat egin, **hasi eta akabo**. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akabo arazoa** (3); **akabo da** (5); **akabo dena** (5); **akabo duk** (3); **akabo gure** (14); **akabo haren** (5); **akabo orduan** (4); **akabo oreka** (3); **akabo partida** (5); **akabo zen** (5); **akabo ziren** (3); **akabo zure** (6); **baina akabo** (4); **bestela akabo** (7); **edo akabo** (3); **eta akabo** (75); **eta akabo orduan** (4); **eta akabo partida** (4); **gero akabo** (3); **kito eta akabo** (3)

---

akabu 1 *iz* amaiera.

Hura **akabua** izan zen. Karlos Zabala

Langileentzako **"akabua"** litzateke pribatizazioa, ELAko arduradunaren ustez. Berria - Ekonomia

Akabua zen, inon zen deskalabru handiena, nire gauza guztiak eta nire sosak motxila galduan zeudelako. Fernando Rey

Konturatzen zen horratio, argitasunezko une batzuetan, heriotza eta **akabua** zetorkiola laster bide horretatik. Xabier Mendiguren Elizegi

Gerraren **akabua** dekretatu zen arren, hildako bat agertu zen oraindik. Joseba Sarrionandia

Entzuleetarik asko sotoetan gorde ziren, janari, ur eta pistolekin, munduaren **akabuaren** zain. Iñigo Aranbarri

Berehala igarri nion: egun hark ez zuen **akabu** onik izango. Harkaitz Cano

Aro bat, idazten du, **akabura** doa betiko, ez Errusiarentzat bakarrik, baina mundu osoarentzat: aro humanista-liberal-burgesa, Ernazimentuarekin sortu eta Iraultza Frantsesarekin nagusitua. Joxe Azurmendi

Zure gorputzean, zure bizitzan zehar, zure gorputzaren gertabidean zehar, zure bizitzaren hasieratik **akabura** bitartean. Lourdes Oñederra

Haiek denak, bistan da, besteen harrapakin eta mozkin gelditu ziren, euren moztasun fatalek eragotziak, naturak espezie hura **akabura** eroan arte. Xabier Amuriza

Akabuko puntilla! Ezin dut gehiago agoantatu. Patxi Iturritegi

Bide horrek ez duela **akaburik** alegia. Iñaki Iñurrieta

2

Geltokia baino lehentxeago, zubi **akabuko** aterpe horretan, soinujole itsu bat egoten da beti, betaurreko beltzekin. Harkaitz Cano

3 *akabua eman*

Ez aspertzeko moduko ardura, alazankoa: alpha hizkia ezabatu zion lehen kantuari, beta bigarrenari, gamma hirugarrenari... eta horrela alfabetoko hogeita bost hizkiei **akabua eman** zion arte. Iñigo Aranbarri

Bazakiat erabaki honekin batzordeari **akabua ematen** diogula eta, bidenabar, nire porrot profesionala onartzen dudala, baina ez diat beste aukerarik. Joxean Agirre

Orduan, etsaiarengana hurbiltzen saiatu zen, hartara **akabua emateko** bere burdinazko kakoarekin, ordura arte airea urratzen ibili baitzen; baina kakoaren oldarraren aurrean, Peter makurtu, modu basatian eraso eta kapitaina saihetsetan zauritu zuen. Julen Gabiria

Espainiako kartzeletan preso egoniko beste euskal idazle batek, Joseba Sarrionandiak, teknika bera baliatzen du bere gatibutza poema bati, **akabua emateko**: [...]. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akabua izan zen** (3)

---

akademi ik **akademia**.

---

akademia *(orobat **akademi** hitz elkartuetan lehen osagai gisa g.er.)* **1** *iz* zientzia, arte edo letretako jakitunak biltzen dituen erakundea.

Euskaltzaindia, Euskararen **Akademia**. Koldo Zuazo

Akademia horrek bazuen nolabaiteko ofizialtasuna; behinik behin, Hego Euskal Herriko lau erakunde nagusiek emandakoa. Koldo Zuazo

Saritua eta Metropoleko Letren **Akademia** Goreneko kidea. Jose Angel Irigaray

Ritter von Truxa irakaslea -Zientzien **Akademiako** partaide (adar filosofiko-historikoan), eta **Akademia** Kontsularreko dozente-, ez da hain ezaguna. Anton Garikano

Ondoren, Platonen **Akademia** Zaharraren eta Berriaren arteko bereizketa agertzen da, zehazki, Agustinek Berriaz egiten duen interpretazioa. Imanol Unzurrunzaga

Parisko **Akademia** Asiarra sortu zuen, Antoine Silvestre de Sacyrekin batera. Karlos Zabala

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Geure unibertsitateetan ere ingelesez edo beste hizkuntza horiez eskolak jasotzeko aukera, ezin hobea litzateke, **akademia** alorrean hizkuntza hori trebetasunez erabiltzeko oso bide egokia baita. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eta ez litzateke ona izango **akademia** arazoetan ordezkoak aurkitzea zaila ez baldin bada, ez baita gauza bera gertatzen araugintzan: ez litzateke erraza izango Euskaltzaindiak historian zehar bete izan duen papera beteko lukeen beste elkarteren bat aurkitzea. Pello Salaburu

Akademia kutsuko txosten, tesina edota ikasgai gisako lanen ugaritasuna. Berria - Kultura

Akademia Ordenaziorako errektoreordea izan zen Peio Salaburu errektore zela. Berria - Euskal Herria

Jean Mixel Eple **Akademia** Ikuskariak astelehen arratsean erran du eskola karta egina dela eta ez ustezko larriak salbu ez dela mugituko. Herria

Paueko **Akademia** Ikuskaritzak segurtatu duenez, departamendu mailan 5 irakasle zeuden greban. Berria - Ekonomia

Ikerketa mota horiek, hala ere, oso gutxitan dakarte **akademi** espedientearen irekiera. Iban Zaldua

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oso hizkuntza **akademia** gutxik egin du Euskaltzaindiak egin duen lan adina hain denbora laburrean. Pello Salaburu

Ospatu zuten gogotik Pariseko Zientzia **Akademia** Gorenean. Hasier Etxeberria

Oso tradizionala da oraindik ere Hollywoodeko Zinema **Akademia**. Berria - Kultura

Eta, okerragoa zena, musika-**akademia** berean segitu beharko nuen. Anjel Lertxundi

Euskal **Akademia** bat asmatu zuten bidegileetarik izan zen Azkue eta Broussainekin. Xipri Arbelbide

Parisko Zientzien Errege **Akademia**. Jon Muñoz

San Luiseko Arte Ederretako Erret **Akademia**. Berria - Kultura

4 gai bai buruz azterketak prestatzeko edo zerbaiterako beharrezko ezaguerak izateko bidea ematen duen ikastetxea.

Eskolak ematen hasia zela ikasturte berrian **akademia** batean. Juan Kruz Igerabide

Euskara eta ingelesa ikasteko **akademia** baten izena. Iñaki Arranz

Ingelesa ikasteko **akademia** on baten bila zebilela. Joxemari Iturralde

Oinezkoen ibilbidetik irtenda, Peterrek handik hurbil samar dagoen etxetxo batera eraman nau, emakumeentzako ingeles-**akademia** batera, alegia. Jon Arretxe

Hori gabe unibertsitatean irakatsiko litzatekeena ez litzateke oso desberdina izango **akademia** batean irakats daitekeenetik, kantitate kontua izango bailitzateke gehienez ere, ez kualitate kontua, zerbait izatekotan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zumarragara joaten hasi zirela jakin nuen, pintura-**akademia** batera. Xabier Mendiguren Elizegi

5 ***akademia militar***

Akademia Militarra Vienatik gertu zegoen, muino baten gainean. Xabier Olarra

Mutikoa **Akademia Militarreko** barnetegian sartu zuten. Xabier Olarra

Akademia Militarrean zegoen, eta laster graduatuko zen parakaidista bezala, eta eguneroko bat idazten zuen. Pako Aristi

6 ***hizkuntza akademia***

Hizkuntza akademia sortu beharraz ere mintzatu zen, eta baita euskara kultura hizkuntza bilakatzeaz ere. Koldo Zuazo

Oso **hizkuntza** akademia gutxik egin du Euskaltzaindiak egin duen lan adina hain denbora laburrean. Pello Salaburu

Hizkuntza akademiek ez ezik, gobernuek eurek ere erabaki zehatzak hartu behar izaten dituzte sarri. Koldo Zuazo

Parlamentu eta **hizkuntza akademiekin** elkarlana abian jarriz. Berria - Euskal Herria

Partaide gehienak hizkuntzaren ingurukoak ziren: filologoak, poetak, hedabideetako esatariak, **hizkuntza akademiako** heterodoxoren bat edo beste. Josetxo Azkona

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akademia bat (8); **akademia batean** (3); **akademia batera** (4); **akademia eta** (7); **akademia ikuskariak** (4); **akademia ikuskaritza** (4); **akademia ikuskaritzak** (7); **akademia kontuetan** (4); **akademia militarra** (3); **akademia militarrean** (5); **akademia militarretan** (4); **akademia nazionaleko** (3); **akademia ordenaziorako** (4); **akademia ordenaziorako errektoreordea** (3); **akademia sortu** (3); **akademiak ere** (3); **akademiak ez** (3); **akademiak oscar** (3); **akademiako ikasle** (3); **akademiako ikuskariak** (4); **akademiako kide** (14); **akademiako kide izendatu** (3); **akademiako kidea** (6); **akademian ez** (3); **akademiara joan** (3); **akademiaren eskutik** (4); **akademiaren ikastaldi** (4); **akademiaren sari** (3); **akademiaren saria** (3); **du akademiak** (4); **errege akademia** (4); **errege akademiak** (3); **errege akademiako** (5); **errege akademiako kide** (3); **errege akademiaren** (5); **erret akademiaren** (3); **espainiako akademiak** (5); **espainiako zinema akademiak** (6); **eta akademia** (11); **europar akademia** (3); **euskararen akademia** (3); **euskararen akademiak** (5); **euskararen akademiaren** (3); **hizkuntz akademia** (4); **hizkuntza akademia** (3); **hizkuntzaren akademiak** (3); **hollywoodeko akademiak** (5); **hollywoodeko zinema akademiak** (3); **kantu koralaren akademia** (3); **koralaren akademia** (3); **letren akademia** (4); **metropoleko letren akademia** (3); **paueko akademia** (6); **paueko akademia ikuskaritzak** (5); **paueko akademiak** (3); **ravel akademia** (4); **ravel akademiak** (11); **ravel akademiaren** (12); **ravel akademiaren ikastaldi** (4); **stockholmeko zientzia akademiak** (3); **suediako akademiak** (3); **zientzia akademia** (5); **zientzia akademiak** (4); **zientzia akademiako** (4); **zientzien akademiak** (3); **zinema akademiak** (13); **zuen akademia** (3); **zuen akademiak** (3)

---

akademiakide *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi) iz* akademia bateko kidea. ik **akademiko**.

Eta neurri batean, gaurko kitxuako **akademiakideek** ere uste dute zilborra izaten segitzen duela, pixka bat zilbortuak daude. ETC-literatura, saiakera

Bernardo Atxaga euskaltzain izateko proposatuko zutela jakinarazi zutenean, urtarrileko hirugarren astean, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia eta Ana Toledo **akademiakideek** bazuten, noski, idazlearen beraren oniritzia. ETC-prentsa

Akademia izena eman diogu elkarteak glamour pixka bat izan dezan, eta **akademiakidea** proiektuarekin identifikatua sentitu dadin. ETC-prentsa

Lan horri esker babes handia izan zuen hainbat senatari, **akademiakide** eta komikilariren artean, AEBetan. ETC-prentsa

Akademiakide izandako poetarentzat ere hitz goxoak besterik ez ditu Jean Haritxelharrek. ETC-prentsa

170 **akademiakideei** iazko libururik gustukoena aukeratzeko eskatu zitzaien lehen txandan, eta botoen herenak lortu zituen obrarik ez zenez, ohiko prozedurari jarraitu zioten. ETC-prentsa

Joaquin Vaquero Trucios, Rafael Canogar eta Francisco Calvo Serraller izan dira Villalbaren hautagaitzaren alde indar handien egiten duten **akademiakideak**. ETC-prentsa

Frantses Akademia bereziki holako aldaketa baten aurka goraki mintzatu da, **akademiakideek** aho batez onartu adierazpen batean galdatzen zutelarik aldaketa proposamen hori ken zedin. ETC-prentsa

Akademiakideei laguntza ekonomikoa eskatu beharra ere izango dutela adierazi dute. ETC-prentsa

Ilham Tohti **akademiakide** uigurraren aurkako epaiketa hasi dute Txinan . ETC-prentsa

Iaz, Svetlana Aleksievitx kazetaria sarituta **akademiakideak** "ausartak" izan zirela uste du, eta aurten ere hala jokatu dutela. ETC-prentsa

Iazkoa, izan ere, eman gabe utzi zuen, hamazortzi emakumek **akademiakide** baten senarrarengandik erasoak jasan zituztela salatu ostean sortu eskandaluak hartaratuta. ETC-prentsa

Euskal irakurle guztiak **akademiakide** izan daitezke. ETC-entziklopedia

Britainiako Artisten Elkarteko lehendakariorde egin zuten 1824an, eta Errege **Akademiakide** 1841ean. ETC-entziklopedia

---

akademiko **1** *izond* akademiarena, akademiari dagokiona. ik **akademiakide**.

Idazlan **akademikoaren** ezaugarri orokorrak. Askoren artean

Tonu eta estilo **akademikoa** ongi erabili. Askoren artean

Originala ez den lan **akademiko** batek ez du batere balio. Askoren artean

Hau ez da ariketa **akademiko** soil bat ez; sektore publikoak eta sektore pribatuak mekanismoak abia ditzaten egin da. Berria - Ekonomia

Batzuk burua altxatzen hasiak ziren nerabezaroan: segida onean hitz egiten, trebetasun sozialak ikasten (zailagoak halako umeentzat edozein ikasketa **akademiko** baino) eta munduaren aurrean agertzeko moduko kanpoalde sozialak sortzen. Xabier Olarra

Harritzekoa dena da -eta inori kontuak eskatzekoa ere bai- gure seme--alabei ere gauza bera gertatzea bizitza **akademiko** osoa euskaraz egin eta gero. Anjel Lertxundi

Beste euskal musikari bati ere, Jesus Guridiri, ohore **akademiko** bera eman zioten 1913an. Askoren artean

Azken urteotan eztabaida horiek muga **akademikoak** hautsi eta arazoen kokagunera zabaldu dira, hots, ospitaleetara, ikerketa-zentroetara, etab. Askoren artean

Ezin da zalantzan jarri ZTG ikasketek eztabaidagai berriak planteatu dizkiotela mundu **akademikoari** . Askoren artean

Zubiriren lana filosofia **akademikora** mugatu zen. Askoren artean

Ezin zion segitu hizkera **akademiko** zatar haren jario motelari, ZTG ikasketak hezkuntza-sistemen curriculumen diseinuetan lekua hartzen ari dira, eta ikerketa-esparru berri gisa gero eta finkatuago daude diziplina **akademikoen** artean. Anton Garikano

Estatus **akademiko** , lanbide eta jatorri askotariko pertsonek osatu dute liburua. Berria - Kultura

Izan ere, pertsona gorrak maila **akademiko** oso urriarekin bideratzen dira lan merkatura. Berria - Euskal Herria

Euskal idazleek, normalean, Euskaltzaindiaren esanak ongi betetzen dituzte, historian zehar erakunde honek itzal **akademiko** handia izan duelako euskararen alde mugitu izan diren sektore dinamikoenen artean. Pello Salaburu

Zilegi bekit modu ez-**akademiko** batean bukatzea nere lan hau. Iñaki Segurola

Liburu honek eskaintzen duena ez da historialari **akademiko** baten begirada; oroitzapen pertsonalak dira, azken batean. Rafa Egiguren

Togasen mintzoak halako aire **akademiko** bat hartu zuen. Aingeru Epaltza

Arte **akademiko** zaharkitutik aldentzeko 1940ko hamarkadaren erditik aurrera taldeak sortu eta manifestuak idatzi zituzten artista askok. Berria - Kultura

2 *iz* akademia bateko kidea dena.

Orain, azkeneko urteotan, ikertzaileen eta **akademikoen** artean, bada eztabaida etikoa auzi praktikoen inguruan zentratzeko joera bat. Askoren artean

Keynesen teoria erruz hedatu zen bera hil ondoren **akademiko** eta politikoen artean. Iñaki Heras

Nola zitekeen Weber bezalako **akademiko** bat Hitler eta Himmlerren ondoan egotea? Alberto Ladron Arana

Zutitu da entzuleria guztia; ez zaizkio falta **akademiko** xaharrari animozko hitzak, eta loreak eta laudorioak. Karlos Linazasoro

Akademiko talde batek bide du proposatu. Jose Angel Irigaray

Hori bai paradoxa harrigarria, frantses **akademiko** baten ahotan gala erretorikoz eta soinu sudurkariz janzteko! Josu Zabaleta

Erretiroa hartutako **akademiko** baten bizimodua, itxaropenik gabea, etorkizunik gabea: horretarako ari al da prestatzen bere burua, horrekin etsitzeko. Oskar Arana

3 *errendimendu akademiko*

Batek bere irudi pobrea badu, horrek eragina izango du bere **errendimendu akademikoan** , lagunekin dituen harremanetan eta lotsatu egingo da harreman berriak egiterako orduan. Berria - Euskal Herria

" **Errendimendu akademikoan** eta adimen gaitasunean eragiten duten buruko alterazio eta nahaste neurologiko arinak saihestea da kanpaina honen helburua», zehaztu dute, txostenean. Berria - Gaiak

4 *espediente akademiko*

EHUn matrikulatutako euskal presoek beste ikasleek baino **espediente akademiko** hobea izaten dutela ukatu zuen atzo, Eusko Legebiltzarrean, Petxo Idoiaga EHUko irakasleak. Berria - Euskal Herria

Bakoitzaren jaioteguna, helbidea, aita-amen izenak, horien lanbidea, haurrideak, **espediente akademikoa** , zaletasunen eta izaeraren gaineko iruzkinak, adiskidantzak, amodio fustratu nahiz arrakastatsuak, oporretako lekuak... Aingeru Epaltza

5 *kreditu akademiko* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Kreditu akademikoa herrialde askotako unibertsitateetan irakaskuntza-ikaskuntza denbora konputatzeko erabiltzen den unitate estandarra da, besteak beste ikasketa eta unibertsitaeen arteko baliokidetzak erabakitzeko erabiltzen dena. ETC-entziklopedia

Euskaraz landu ahal diren **kreditu akademikoak** oinarri-oinarrizkoa lirateke. ETC-literatura, saiakera

Ikasle bitartekariei **kreditu akademikoak** ematen zaizkie lan horregatik. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *lan akademiko*

Lan akademikoetan , berriz, idazlana egiteko erabili diren liburuen zerrenda osoa sartzea ez dago gaizki. Askoren artean

Adhamandios Korais-ek Parisen edo Vuk Karadzic-ek Vienan egindako **lan akademikoa** Karajorje-ren eta Milos Obrenovic-en matxinaden aurretikoa izan zen. Iñaki Mendiguren

69 Azpilkuetak gehiago estimatzen zituen latinezko **lan akademikoak** erromantzezko lan pastoralak baino: "Quando" kapituluko iruzkinaren edo berriztearen hastapenean, otoitzaz idatzi hitz adierazgarri hauek eman ditu. Piarres Xarriton

Liburuan aurkitzen da Txillardegiren bibliografia hautatua (haren **lan akademikoak** eta bertze idazlan eta saiakera frango). Herria

Euskal Herrian nazioari eta nazionalismoari buruz egiten diren **lan akademiko** , zientifiko eta sozialak suspertzea du helburu. Berria - Euskal Herria

7 *maila akademiko*

Maila akademikoan ere gabezia ikaragarri handiak ditugu. Txema Ramirez de la Piscina

Web-guneak egilearen edo editorearen -informazioa argitaratzen duena horren egilea ez bada- identifikazioa eduki behar du (izena, **maila akademikoa** , lanbide-estatusa). Askoren artean

Maila akademiko handikoa da eta atzerrian egiten diren liburuen mailan dago. Berria - Kultura

Gure hautagaitzan hiru pertsona maila dauzkagu: **maila akademiko** onekoak batzuk, ikertzaile onak; profesionalak beste batzuk; hirugarrenik, gestiorako pertsonak dauzkagu, eskarmentu handikoak. Berria - Harian

Sakonxeago joanez gero, baina, beharbada gehiago baloratzen nuen zure adiskidetasunak zekarkidan onura -ez onura materiala, ez nuen **maila akademikoan** abantailarik lortzeko inongo asmorik-; axola gehiago zitzaidala zure adiskidetasuna esan nahi dut, zure insistentziak sortzen zidan gogaidura baino. Xabier Mendiguren Elizegi

Gines Sepulveda eta Alfontso Castro haren ikaskide aipatuenetarik izan ziren eta berak han iragan zuen lehen **maila akademikoa** . Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akademiko bat (11); **akademiko batean** (4); **akademiko batek** (4); **akademiko baten** (6); **akademiko eta** (5); **akademikoa da** (4); **akademikoa eta** (3); **akademikoan ere** (4); **akademikoaren ezaugarri** (3); **akademikoaren ezaugarri orokorrak** (3); **akademikoen artean** (3); **akademikoen aurka** (4); **arlo akademikoa** (3); **arlo akademikoan** (3); **erabat akademikoa** (4); **erabat akademikoa da** (3); **eta akademikoak** (4); **eta akademikoen** (3); **euskal akademikoak** (4); **hautagaitza erabat akademikoa** (4); **ibilbide akademikoa** (8); **ibilbide akademikoan** (3); **idazlan akademiko** (3); **idazlan akademikoa** (4); **idazlan akademikoaren** (3); **idazlan akademikoaren ezaugarri** (3); **jarduera akademikoa** (3); **lan akademiko** (13); **lan akademiko batek** (3); **lan akademiko baten** (3); **lan akademikoak** (3); **lan akademikoetan** (3); **maila akademiko** (3); **maila akademikoan** (3); **modu akademikoan** (3)

---

akademikoki *adlag* era akademikoan.

Bazekien, neronek azalduta, mementoko behintzat, ez nuela uste hura **akademikoki** burutzea merezi zuenik. Txillardegi

Autoritatezko argumentua umetako "aitak esan du" otxan irengarriaren luzamen patologikoa baizik ez da, patologikoa baina **akademikoki** txit onetsia. Iñaki Segurola

Bigarren Mundu Gerraz gero, **akademikoki** finkatuta jada, izen horren esanahia zabaltzen joan da, irakaskuntza-programen interesen arabera batik bat, lortzeke alabaina oraindik bere izaeraren mugaketa garbia eta estatutu epistemologikoaren definizio oro har onartua antropologo filosofiko deritzenen komunitatean bertan. Askoren artean

---

akademikotasun *iz* akademikoa denaren nolakotasuna.

Kulturgintza onena ez da eginda dagoenaren -ikurraren- erakusleihoa, edo arautatakoaren - **akademikotasunaren** - barrutia, eragile kulturalek gaur eta hemen arriskuz eta nekez egiten duten lan ia anonimoak bideratzen duena baino. Anjel Lertxundi

---

akademizatu *izond* akademiko bihurtua.

Zentratze hori, berez ere margolaritzaren herentziaren ikuspegi **akademizatu** batetik hartua, ez da unibertsala zinemagintzan, eta badira, hain zuzen, zentratze horren ukazioan oinarritzen diren estiloak, nahita egindako deszentratze batean oinarrituak, markoaren adierazgarritasun-balio batzuk azpimarratzeko eginak gehienetan. Josu Zabaleta

---

akademizismo *iz* akademien linearekiko lotura gehiegizkoa.

Gure ustez, aurtengo egitaraua lehengo **akademizismotik** askatu egin da, hein batean, behintzat. Berria - Kultura

Eman dezagun irizpide zientifikoz egina izatea, dokumentatuta egotea eta hipotesiak susmo hutsez bainoago arrazoituta plazaratzeaz gain, irakurleari pulpitutik barik hurbiletik, **akademizismorik** gabe eta pasioz hitz egiten dion lana dela dibulgaziozko saiakera ona. Berria - Kultura

Kalitatearen tradizio horri "konformismoa, **akademizismoa**, espiritu burgesa eta autokritika eskasa" leporatzen diote eta "autoreen zinema" ihardoki. Berria - Kultura

---

akademizista *izond* akademizismoaren jarraitzailea.

Ingresen modernotasuna azpimarratzea da helburua, eta margolari hotz eta **akademizistaren** estereotipoa baztertzea. Berria - Kultura

---

akadiar *izlag* antzinako Mesopotamiako Akad hiriari dagokiona.

Egia da sumertar eta **akadiar** literatura klasikoaz Asurbanipalek zituen buztinezko bi liburutegien tamaina ezezaguna zela arkeologo modernoentzat; hauek bi asiriar bilduma handi haien bilketaz eta barreiaketaz Niniveko aztarnategian indusketa-lanetan oholtxo batzuk berreskuratuz jakin zuten. Iñaki Mendiguren

---

akadiera *iz* antzinako Mesopotamiako Akad hiriko hizkuntza.

Estatu unibertsal hau bukaerara iritsi baino lehen, **akadierak** berea zuen garaipena eta sumeriera ia hizkuntza hila zen. Iñaki Mendiguren

---

akaiar *iz* Greziako Akaiako biztanlea.

Akaiar guztiak hunkitu ziren. Juan Kruz Igerabide

Han ibili zen Ulises zuhurra ere, Itaka uharteko jauna, bere gizonekin, **akaiar** adats luzeekin. Juan Kruz Igerabide

Akaiarrak gaituk eta Troiatik gatozak; itsasoan haize gaiztoak jota galdurik ibili gaituk eta etxera itzuli nahi diagu. Juan Kruz Igerabide

Akaiarren batzarra deitu baino lehen egin behar dugu hori, Telemako ez baita isilik geratuko; denen aurrean salatu nahiko gaitu. Juan Kruz Igerabide

Akiles, Peleoren seme -erantzun nion-, **akaiarren** artean handiena: Tiresiasen** iragarpena jakitera etorri nauk, Itakara nola iritsi jakiteko, ez bainaiz oraindik etxera itzuli. Juan Kruz Igerabide

Oso ederki egiten zuela kantuan esan zion, eta oso ongi esaten zituela Troian **akaiarrek** jasan zituztenak; han bertan izana balitz bezala. Juan Kruz Igerabide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akaiar adats** (5)
> **akaiarren artean** (3)

---

akain 1 *iz* armiarmaren familiako hainbat animalia bizkarroiri ematen zaien izena, eskuarki ardien larruazalean, haien odolaz elikatuz, bizi dena *(Ixodoidea)*. ik **kapar**[1]; **lakasta**.

Ardi zaharrak, zakurra aspaldidanik ezagutzen dutenak, atseginez egoten dira, **akain** asko izaten baitituzte. Gotzon Garate

Ardiei **akain** kentzen. Gotzon Garate

Akain hanpatuak lehertarazi egiten dituzte, ardiei artilea zetaka beltzez zikintzen zaiela, **akainen** odola ubela. Gotzon Garate

Abereen **akainak** eta zorriak hiltzeko erabiltzen dute. Berria - Gaiak

Errusian hiru lagun hil eta 50 gaixotu dira **akainek** entzefalitisaz kutsatu ostean. Berria - Gaiak

Pajolek eskuz arakatu du ama baten ile trinkoa, eta azazkalez harrapatu du **akain** horizta borobil bat, mardula, asebetea, egundokoa. Itziar Otegi

Akain hanpatuak lehertarazi egiten dituzte, ardiei artilea zetaka beltzez zikintzen zaiela, **akainen** odola ubela. Gotzon Garate

Lehendakaritzarako hautagai sozialista izan zen, eta **akaina** baino gaiztoagoa Roosveltentzat, lehendakariorde (1897-1901) eta lehendakari izan zenean (1901-1909). Xabier Olarra

2 *akain belar* *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

Errizino-olioa **akain-belarraren** hazitik ateratzen den landare olio mota bat da. ETC-entziklopedia

Aipagarrienak manioka ("Manihot esculenta"), **akain-belarra** ("Ricinus communis"), kautxu zuhaitza ("Hevea brasiliensis") eta "Jatropha curcas" dira. ETC-entziklopedia

Horien ondotik, **akain-belarraren** (edo adar zupatzailea) eta pinaziaren (jatrofa) monolaborantza eremu handiak etorri izan dira. ETC-prentsa

Ia batere kutsatzen ez duen produktu honek formulan fuela, ura eta **akain-belarraren** haziak ditu nahasirik. ETC-prentsa

Ez eta inperioko belaontzietan iritsi eta, **akain-belarren** eta fruta gozoen paisaia emeak erakarrita, farfail eta izpilikuz betetako fardeleria aldean, zuloz jositako hormatzarretatik goi lautadara igo ziren printzeek ere. ETC-literatura, saiakera

Sukarra baretzeko, zorroan zeramatzan botikak hartu zituen Iradierrek: kinina, homeopatia, baita **akain-belarraren** olioa ere. ETC-literatura, saiakera

Akain-belarren hazietatik ateratako olioa ezarri zuen nire buruko larruazalean; bi txirikorda egin zizkidan, beti eramaten nuen bezala. ETC-literatura, saiakera

Nagusiak babarrunen konkanabalina eta **akain-belarraren** errizina dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontatu aitak egindakoak (andre bati **akain-belarra** edatera eman, ilea moztu, bortxatu askoren artean?). ETC-literatura, saiakera

Akain-belarraren (Ricinus communis) floema-izerdiaren osaera, floeman ebakiak egin eta exudatua jaso ondoren ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta ez zegoen modurik Tommy Caffreyri **akain-belar** olioa harrarazteko, harik eta Cissy Caffreyk sudurretik heldu, eta ogiaren kozkorraren muturtxo bat edo ogi beltza zirope urre-kolorearekin emango ziola agintzen zion arte. ETC-literatura, saiakera

Heriotzorria, abrus precatoriusa, **akain belarra**, datura, kolkikoa eta astaperrexil handia landare pozoitsuen adibideak dira. ETC-literatura, saiakera

---

akalasia *iz* eritasun edo alditxarra, jan dena esofagotik behera bultzatzea eragozten duena.

Akalasia gaitzaren ondorioz, aurrez 20 kilo galdu zituela eta egun botikak hartzen jarraitzen duela adierazi zuten. Berria - Euskal Herria

Aurretik, **akalasia** gaixotasunaren ondorioz 20 kilo galdu zituen. Berria - Euskal Herria

---

akamailu *iz* belar landarea, bi urte baino gehiago bizi dena, oro usain txarrekoa.

Babes-erretena ere leku interesgarria zen Martinentzat; goroldio gorriz, horiz eta berdez estaliak zeuden hormak; harrien artean esne-belarra, erabelarra eta **akamailua** hazten ziren, eta eguzkitan belzten ziren musker irisatu handiak. Koro Navarro

---

akanpada *iz* kanpatzea.

Servan ordezkari orokorrari igorriko dizkiozu, nire goraintziekin -agindu zion, bakan abandonatzen zuen doinu larderiatsua berriz bereganatuz Pirineoetan **akanpada** egiten zuen gudarostearen jenerala aitatuz-. Elena Touyarou

Atzo aireportuan **akanpada** hasi zuten eta sarrera itxi egin zieten aparkalekuko zerbitzua hartu berri duen Setex enpresako langileei. Berria - Ekonomia

Kattin Lasserre eta Marie Lou Lapeyrade (Angelu) **"Akanpadan"** . Herria

Duela guti Demoek burutu zuten **akanpadaren** kari hitz eman bilkurak ez dira oraino abiatuak. Herria

EHGAMek LesGay **Akanpada** antolatu du irailaren 3, 4 eta 5ean, Oiartzunen. Berria - Euskal Herria

---

akanpaleku ik **kanpaleku**.

---

akanpamendu ik **kanpamendu**.

---

akanpatu ik **kanpatu**.

---

akanpatzaile ik **kanpatzaile**.

---

akanto *iz* hosto kizkurreko eta lore zuriko belar landarea *(Acanthus mollis)*.

Gertatu zen saski hori kasualitatez **akanto** baten sustraien gainean geratu zela. Santiago Iruretagoiena

Bitartean, etorri zen udaberria eta **akantoaren** sustrai hura erdian pisuarekin zanpatuta zegoen bezala, hasi omen zen hostoak eta kimu berriak ematen. Santiago Iruretagoiena

Ikusten da estatua handiak dauzkatela harrigarriro landuta, eta beste irudi txiki asko eta loreak eta **akanto** -hostoak, dotore asko zizelkatuta. Santiago Iruretagoiena

Kapitel korintoarra **akanto** -hostoz inguratutako saskitxotik "asmatzea". Santiago Iruretagoiena

---

akar ik **ah**akar.

---

akara **1** *iz* lore zuri usaintsuak ematen dituen landarea, perfumeak egiteko erabiltzen dena.

Mendaro edo mirra esentzia gozoa edo sudurrentzat nektarra den **akara** lurrina egitera zoazenean, lehenen behar duzuna ahal den oliba oliorik usaingabeena, sudurrei inolako jariorik igorriko ez diena, den bezala, egoskeran usain nahastuak lorrin eta honda ez ditzan. Xabier Amuriza

Akara -olio usain bortitza zerion lekuari. Juan Garzia

2 ***akara zeltiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Akara zeltiko edo nardo zeltiko ("Valeriana celtica") Valerianaceae familiako landare-espeziea da, erdialdeko Europan jatorria duena. 1930eko hamarkadara arte masiboki hazten zuten Asian perfume lurrinak egiteko. ETC-entziklopedia

---

akarizida *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *iz* akaroak hiltzen dituena.

Hau lortzeko, ingurua kaltetzen eta kutsatzen duten zenbait plagizida, herbizida, nematizida, **akarizida** , fungizida eta ongarri etengabeki erabiliko dira. ETC-prentsa

Maila orokorragoan, kaparren populazio-dentsitatea murriztu daiteke -eremu osoan **akarizidak** aplikatuz (kaparrentzat eta horiekin lotura duten artropodoentzat espezifikoki toxikoak diren konposatuak erabiliz, alegia)- eta kaparren habitata izan daitezkeenak erauziz (hostoak eta sastrakak). ETC-zientzia, zuzenbidea

Horiez gain **akarizidak** , feromonak eta errodentizidak ere aurki daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

akaro **1** *iz* akaina.

Euli, eltxo, **akaro** eta gainerakoak. Hasier Etxeberria

Funtsean, begirada desberdinak genituela esaten zuen berak: aurrena, eztabaidaren hastapenean, emakumeok zikinkeriarako begirada mikroskopikoa dugula esaten zuen, hauts arteko **akaroak** antzemateraino. Patxi Zubizarreta

Hiru euroko sarreraren truke, hara zer topatuko duen bisitariak ferian: etxebizitza saltzaile nagusien agenteak, maileguak eskaintzen dituzten bankuak, notarioak eta termitak eta **akaroak** tratatzeko enpresa pare bat. Berria - Euskal Herria

2 ***hautsaren akaro*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Hautsaren akaroa ("Dermatophagoides pteronyssinus") Pyroglyphidae familiako akaro bat da, gizakien etxeetako hautan bizi dena. Gizakien detritus organikoan bizi dira, adibidez gizakien larruazalaren zelula hilek sortutako hautsan. ETC-entziklopedia

---

akasdun ik **akastun**.

---

akasgabe *(orobat **akatsgabe** g.er.)* **1** *izond* akatsik ez duena.

Krimenak burutu dituen gaizkilea zergatik ohoretan goresten den eta desohorearen itzalpean estaltzen pertsona **akasgabea** . Imanol Unzurrunzaga

Benetan Jainkoaren emazte **akasgabea** da hark harturiko erlijio egiazkoa. Askoren artean

Larunbatetan, printzeak sei arkume **akasgabe** eta ahari **akasgabe** bat eskainiko dizkit erre-oparitzat. Elizen arteko biblia

Bortzak -haur nahiz heldu- dolu janzkera **akatsgabeaz** apainduak zeuden. Aingeru Epaltza

Portaera **akasgabea** izan zenuen sortu zintuzten egunetik, maltzurkeriaz jokatzen hasi zinen arte. Elizen arteko biblia

Abereak urte batekoa beharko du izan, arra eta **akasgabea**, arkume nahiz antxume. Elizen arteko biblia

Bildots garbi eta **akasgabearen** haragia. Askoren artean

Delitu baten frogak **akasgabeak** eta akasdunak izan daitezke. Juan Martin Elexpuru

Halako batean, Marga teoriaren partaide egitea erabaki nuen, arrazoibide ia **akatsgabea** iruditzen baitzitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Indian bizi ziren ingelesen eta auzoko indiarren arteko harreman pertsonalak gutxitu egin ziren, harik eta egun zahar txarretan gizatiarregi indiarturiko "nabob" ingelesa britainiar funtzionario profesionalki **akasgabe** eta pertsonalki hurbilgaitz bihurtu zen arte. Iñaki Mendiguren

Aurpegiera **akasgabea** du, arroska masailak, kopeta dirdaisua eta perlazko hortzeria. Patxi Zubizarreta

Aurreneko baldintza: lotsagaldu **akasgabea** izatea. Iñigo Aranbarri

Zekor bat, ahari bat eta urtebeteko zazpi arkume -denak **akasgabeak** - eskainiko dituzue erre-oparitzat, eta Jaunak atseginez onartuko ditu. Elizen arteko biblia

2 (adizlagun gisa) akatsik gabe.

Sendo zaitzatela barrutik, Jesus gure Jauna bere santuekin agertuko den egunean santu eta **akasgabe** aurkez zaitezten gure Aita Jainkoaren aurrean. Elizen arteko biblia

Ni **akasgabe** jaio banintz mundura, seguruena ez nuen ezer ikasiko. Matías Múgica

Zuek zarete testigu, eta Jainkoa ere bai, zein garbi, zuzen eta **akasgabe** jokatu genuen zuekin, sinestedunokin. Elizen arteko biblia

3 ***akasgabeko*** *izlag*

Behin garbikuntza-ohikunea amaituta, hartu **akasgabeko** zezen bat eta ahari bat. Elizen arteko biblia

Jaietako beste zazpi egunetako bakoitzean, **akasgabeko** zazpi zezen eta zazpi ahari eskainiko dizkio Jaunari erre-oparitzat, eta aker bat barkamen-oparitzat. Elizen arteko biblia

Jaso, baita ere, Kristo apaiz nagusiaren zigilua, horren indarrez, zure hitz eta egiteak **akasgabeko** eta egiazkotzat aitortuko baititutze denek. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahari akasgabea** (4); **ahari akasgabea eramango** (3); **akasgabe bat** (5); **akasgabea eramango** (5); **akasgabea eramango dio** (3); **akasgabea eskainiko** (8); **akasgabea izan** (5); **akasgabea izan behar** (3); **arkume akasgabe** (3); **arra eta akasgabea** (3); **denak akasgabeak** (8); **eta akasgabe** (6); **eta akasgabea** (7)

---

akasgabetasun *iz* akasgabe izatearen nolakotasuna.

Akatsik gabea izateak **akasgabetasun** hori beste onurarik ez din ekarriko, eta beraz hori ez dun harrotasunez eta, are gutxiago, atseginez bizitzeko aitzakia izango. Joxan Elosegi

"Banekien nik ezen Jainkoak azkenean adituko zidala", eta iduritu zitzaidan ezen munduaren perfetasuna eta munduaren **akasgabetasuna** ukitu nuela. Joan Mari Irigoien

---

akaso **1** *adlag* beharbada, agian. (esaldi hasieran)

Akaso ziklista bikaina zela esango zuketen haren ezagunek, jazbana jotzen zuela esan beharrean, horretan ere abilidadea izanagatik. Xabier Etxabe

Akaso gure birraitonak mespretxu puntu batez hitz egin ziolako Jaltari buruz, ez zegoela hura konparatzerik Dinard edo Biarritzekin. Iban Zaldua

Akaso horrexetarako da patioa, etxebizitzetako gelarik barruko eta ilunenak argitzeko. Iñaki Iñurrieta

Akaso jakingo zuen zerbait elizen egituren inguruan -Haritzek ondorioak ateratzen jarraitu zuen-. Fernando Morillo

Akaso pentsatuko dok gauza material oro ordezkagarria dela... diruarekin dana erosi daitekeela! Unai Iturriaga

Akaso konturatu egingo zen zezen buru harekin bizikleta baten eserlekua eta heldulekua egin zitzakeela. Harkaitz Cano

Akaso hori da benetako heldutasuna. Joxerra Garzia

Akaso orain gortinaz beste aldean dago, beraiei begira, ezkutuan. Jokin Muñoz

Akaso ez duk pasatakoaz akordatuko eta ez zioat ezer esan beharrik izango, esaten nioan neure buruari. Xabier Etxabe

Akaso Enrike ere, Gojenola bezala, Oteiza bezala, beste hainbat eta hainbat bezala, dei ilun baten mende zegoen. Iñaki Iñurrieta

Akaso, nahiago duzue hemen segitu, beste inora joan gabe. Xabier Montoia

2 (esaldi barnean)

Agian bai, **akaso** ez, neuk ere ez dakit. Juan Luis Zabala

Eginbeharrek eta **akaso** halako soraiotasun batek iraunarazten zioten hirian. Juan Garzia

Bortitz samarra jartzen da, **akaso** sentitzen duelako ez diodala nahi adina arreta jartzen, **akaso** ikusten duelako bere jakintza zalantzan jartzen dudala. Lander Garro

Horrekin irteten da bertsolaria: bukaerako azken bi lerroak, errima-hitz bat azken aurreko punturako, eta **akaso**, errima-hitz hori sartzeko beharko duen esaldi moduaren hasieraren aztarnaren bat. Andoni Egaña

Egile zaharrenek, edo **akaso** denborak berak, lortu dute nolabaiteko distantzia bat ezartzea, eta ez dirudi haien izena lardaska dezakeenik "homeriko", "dantesko" eta halako adjektiboen erabilerak. Juan Garzia

Edo, **akaso** azaltzen ote dira fanfarroi, neguak ez zituela penatzen esan nahita, "garizumako baraualdiak bakarrik" penatzen zituela, alegia, hori zela beraien negu partikularra? Pello Zabala

Irakurlea une honetan, **akaso**, sentitzen ari dena. Imanol Zurutuza

Horietako batzuk diktatuak izango dira **akaso**, baina, jaso, begiz jasotzekoak dira, ez belarriz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Perspektiba aldatzean egon daiteke, **akaso**, gakoa. Iban Zaldua

Biharamunean **akaso**, etxera bidean? Xabier Mendiguren Elizegi

Memelokeria iruditu zaizue **akaso**, baina horrela pasa nintzen eskularruaren galerak sortzen zidan arranguratik, eskularruaren galerak sortu zidan poz txikira. Harkaitz Cano

Alde egina zen, bere herrira **akaso**, Fermin kanpotarra baitzen, gaztelarra. Karlos Linazasoro

Begirada hura zen **akaso** gainontzeko ugaztunek ez zeukaten zerbait, gizakia gizaki egiten zuena. Harkaitz Cano

Horrekin irteten da bertsolaria: bukaerako azken bi lerroak, errima-hitz bat azken aurreko punturako, eta **akaso**, errima-hitz hori sartzeko beharko duen esaldi moduaren hasieraren aztarnaren bat. Andoni Egaña

Holandar hori baita sortzez ere izango da holandar, eta, beraz, europarra izateko lehenengo baldintza bete ahal izango du eta **akaso**, horren ondorioz, europar bihurtuko da. Iban Zaldua

Espiritu Santua al dator **akaso** gu salbatzera? Karlos Linazasoro

Ez al nuen **akaso** neure titulua aldarrikatu Edorasko ateen aurrean? Agustin Otsoa

Kontzienteki askotan, ohartu gabe beste batzuetan, darabilgun hizkuntzaren nondik norakoak zalantzan jartzera eta birpentsatzera bultzatzen gaituzte ariketa hauek, hitzen beste aldean -hitzen honako aldean, **akaso** - dagoen mundua ikusarazten baitigute. Iñaki Arranz

Beroa **akaso**? Edo hotzak esnatu ote du? Arantxa Iturbe

Alkandora aldatu eta kolonia bota nuen, ugari; sobera ere bai **akaso**, harrera zerbitzukoa sudur hegalak harrotuz usainka ikusi bainuen tximista bezala bere aurretik pasatu nintzenean. Ramon Saizarbitoria

Herri eta auzune batzuetan, herriko festetan-eta herriko plazan zutitzen da ba, zuhaitz tantai luze bat, nor gorago igo... **Akaso** haren hondarretakoren bat ote da? Pello Zabala

Bizkai aldean, beste era honetara diote, malizia puntturen batekin, **akaso** : Otsaila emaztien eta katuen hilla; martia gizonena. Pello Zabala

Antzeko zerbait bai **akaso** ikastolan. Juan Luis Zabala

Beste koldarkeria **akaso** larriago batek narama zintzo izatera. Juan Garzia

Ez nuke esango negua tristea denik Biarritzen; malenkoniatsua bai, **akaso** , baina ez tristea. Iban Zaldua

Matxura larriren bat **akaso** ? -nik. Edorta Jimenez

3 (esaldi bukaeran)

Lertxundi **akaso** . Lander Garro

Biharamunean, **akaso** . Aingeru Epaltza

Etxean **akaso** ? Xabier Mendiguren Elizegi

Gai delikatuegiak, **akaso** ? Txema Ramirez de la Piscina

Noiz, non, nork egina den argitu beharko nuke **akaso** . Xabier Mendiguren Elizegi

Ama eta balekumea izango dira **akaso** . Joseba Sarrionandia

Ez zen berehalakoan gertatuko, beraz; liteekena zen ordubete barru izatea ere, edo beranduago **akaso** . Mirentxu Larrañaga

Orduan beste izen bat nuen, eta beste sorterria, eta beste gorputza eta beste arima bat **akaso** . Felipe Juaristi

Munduan bera beste inor ez zegoela uste zuen ume mokordoren bat, **akaso** . Fernando Morillo

Ezagutu ere ez, **akaso** . Xabier Etxabe

Inozentzia pittinen bat erakutsi nahi ote digu **akaso** ? Patziku Perurena

Gizon zintzo bihurtu haiz, **akaso** ? Koldo Biguri

Ez zidan ordea jaramonik egin, txantxa ere iruditu bide zitzaion nire zehaztasuna, ironia makabro bat **akaso** . Karlos Linazasoro

Bestelako idatzizko lanak konbinatuz gero -zutabeak, hitzaldiak, solasaldiak, gidoiak, literatura-lantegiak...-, bai **akaso** . Ana Urkiza

Gauez eta egunez lan eginik eta zabor kontratu edo horietako batekin, **akaso** ... Migel Angel Mintegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akaso bai** (8); **akaso baina** (3); **akaso bakarren batek** (3); **akaso bere** (3); **akaso beste** (3); **akaso ez** (35); **akaso ez da** (4); **akaso ez dela** (3); **akaso gehiago** (3); **akaso gure** (5); **akaso han** (3); **akaso haren** (3); **akaso hori** (6); **akaso hori zen** (3); **akaso horregatik** (8); **akaso horrexegatik** (5); **akaso nire** (5); **akaso pentsatuko** (4); **akaso uste** (3); **al da akaso** (3); **bai akaso** (10); **baina akaso** (9); **bat akaso** (11); **batean akaso** (3); **da akaso** (20); **dira akaso** (6); **du eta akaso** (3); **dut akaso** (3); **dute akaso** (6); **edo akaso** (21); **ere bai akaso** (7); **esango zuen akaso** (3); **eta akaso** (38); **ez akaso** (3); **ez da akaso** (3); **izango akaso** (4); **izango da akaso** (5); **izango dira akaso** (4); **izango zen akaso** (4); **zen akaso** (13); **zuen akaso** (10)

---

akasotasun *iz*

Zer nolako **akasotasuna** ? Karlos Linazasoro

---

akastsu *izond* akatsez betea.

Gertatu zenaren historia itxura hartzen hasia zen: arrazoiren batengatik, analistaren bat metodo **akastsu** batek tronpatu zuen, edo erreaktibo badaezpadako batek, edo ohitura desegoki batek. Juan Garzia

---

akastu, akasten **1** da/du *ad* akastun bihurtu.

Zuen sega baino zorrotzagoak **akastu** dira, lehen ere, agirretarron lepoan. Koldo Izagirre

Ihes egin zuten marmolezko gurutze eta granitozko aingeruen artean, **akastu** nituen tiroka artelan burges batzuk. Koldo Izagirre

· Zaila zen horratio lanpara haiek **akastuak** egotea, alemanak ziren. Koldo Izagirre

2 (era burutua izen gisa)

Hanka bihurriko mahaiak, ohe errezeldunak, baxera **akastu** eta sabeldua, beira beruneztatuak, aitzinean ageri zitzaidan mundu zahar eta berri hori guztia. Koldo Izagirre

---

akastun *izond* akatsa edo akatsak dituena.

Ama **akastun** bat balitz bezala da; gustatuko litzaidake jarri diodan izenaren letrak zertxobait aldatuz ohoratzea. Josu Zabaleta

Errealitatean astazaldien eta zeharkako habeen gainean jartzen dena irudikapenean azpitik kokatzen bada, obrari itxura **akastuna** emango zaio nolabait ere. Santiago Iruretagoiena

Piezak berariaz ezkutarazten zaizkigunean sortzen da arazoa (--...), edo piezak ondo ahokatzen ez direnean, **akastunak** direnean, eskaintzen dizkiguna jakinaren gainean dagoela. Iban Zaldua

Akastunak gara, aitortu beharra dago. Koldo Izagirre

Ezkutatzen zaizkigun piezak bilatuko ditu konspirazionismoak, edo **akastunak** aurkituko". Iban Zaldua

Bazirudien dena bihurtu zela **akastun** , eta aldi berean usteldu egiten zela. Iñaki Iñurrieta

Zalantzan jarri ziren Verreyk plazaratutakoak; frogak maiseatu, eta **akastuntzat** jo ziren haren azterketak; baina benetako objekzioa, horien atzetik, doktrinala zen izatez. Xabier Olarra

Maitasun den Jainkoa nabarmen **akastun** den unibertso baten egilea da, edota unibertsoa Maitasunaren Jainkoa ez den beste Jainkoren batek egina izan behar du. Iñaki Mendiguren

Kreazio-lan estatikoki perfektu horietako bat da, Egilearen geraleku diren horietakoa, eta giza nortasun kontzientea izugarri hurbilketa **akastuna** da askoz ere maila goragoko Izaki batengana, Berau izanik giza psikearen bi organo ezberdin baina banaezin horien egilea. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akastun eta** (3)

---

akastxo *iz* akats xumea.

Akastxo bat ikusten nion, ordea, ilegorria izateaz gainera: kaskarina zen, beti gizon-plantak egiten saiatu arren. Anjel Lertxundi

---

akats *(ETCn **30.253** agerraldi)* **1** *iz* behar bezalakoa ez izatea eragiten duen hutsa edo gabezia. ik**errore**; **huts**[1]; **hutsegite**;

errakuntza.

Baina bere haurren ama zen hala ere eta, arrazoi horrexengatik, emaztearen **akatsak** barkatzen zituen, samindura apur batez bazen ere. Eskarne Mujika

Beste batek, hala ere, **akatsak** aurkitzen ditu libururen batean: haiek konpontzen, zuzentzen, saiatzen da, egilea oinazetu gabe, eta bere burua harropuztu gabe. Jon Muñoz

Eta hau dela-eta, idazketa kontuetan horixe zen Kafkaren arazoa: **akats** guztiak ikusten zituen, bereak eta gainerako guztienak. Koro Navarro

Hau, azken batean, ez da nire historia, baizik eta, batez ere, **akats** eta hutsuneak gorabehera, nire familiarena. Fernando Rey

Emaztearekin aspertuta egotea **akatsik** ez dela esango luke batek baino gehiagok. Gotzon Garate

Akatsek, berriz, ederrago egiten dute Marga. Xabier Montoia

Indibidualismoa da askatasun pertsonalaren babesik onena (bere **akats** eta gehiegikeriak alde batera utz bataitezke) beste edozein sistemaren aldean. Iñaki Heras

Baina **akats** bat zeukan. Pako Aristi

Batak bestearen **akatsen** ezagupena aitortzea da egia maitatzeak ezartzen digun eginbehar gorena. Xabier Olarra

Harro geunden geure **akatsaz**, begien kolorearena edo adatsaren ehundurarena baino askoz gordeago zegoen antz fisiko batek lotzen gintuelako, huraxe zen gure isileko lotura, azaldua izateko hitzen beharrik ez duen aita-alaba arteko kidetasuna. Joxan Elosegi

Baina baztertzen ari naiz nire bidetik: **akats** hori dauka oroitzapen gehiegi dituenak. Koldo Biguri

Napumoceno jauna egurketari izan zenekoa hitz egite aldera esandako kontutzat jo zuen Carlosek, gizon haren **akatsik** handiena ahoberoa eta gauzak jeneralizatu zalea izatea baitzen, Maria da Graçari esandakoaren arabera. Bego Montorio

Perfekzioa, **akatsik** gabeko unea, erabateko zoriona, orainaldi betea. Lourdes Oñederra

Eta neurri **akats** batek izugarri itsustuko du bestelakoan ederra eta pindartsua izan zitekeen edozein bertso. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ikuspegi horretatik, neure familian gabeziatzat ikusi ditudan guztiak ez lirateke hortaz **akatsak**, inondik ere, ezpada nortasun jator eta antzinako baten berezko ezaugarriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta ez deskuidatu gero erretzen uzten, Duddyren urtebetetze-egunean dena **akatsik** gabe nahi dut eta! Iñaki Mendiguren

Aitak gaitzitu aurpegia jarri zuen, **akats** bat topatu izan baliote bezala. Juan Kruz Igerabide

Bere abildaderik handiena zen jantzi batek **akatsik** zuen edo ez antzematea, eta bezero batzuek harengana jotzen zuten beste jostun batzuek egindako jantziak hartuta, ongi edo gaizki eginak zeuden jakiteko. Pello Lizarralde

Eta pentsa jendea lotsatzen dela aurpegian **akats** bat duelako kanpotik ikusten dena! Joan Mari Lekuona

Kartze lan hamabi urte egin ostean kaleratu zuten, urtebete-edo kanpoan eman eta, fiskalak hala eskatuta, epaileak berriro espetxeratu zuen, kondenaren murrizketa eman zion aginduan **akatsak** zeudela argudiatuz. Paddy Rekalde

Nireak **akatsak**, ez eurenak. Joseba Zulaika

Harengana jiratu, eta besoetan zeukan haurrari so, eztarriarekin hots apal bat egin zuen, **akats** bat egin balu bezala, ogiari gatza botatzea ahaztu edo. Anton Garikano

Bazter desberdinetako jopuntuak seinalatuz dozena erdi bat argazki egiteko agindu zion, tarteka zuzendu beharreko **akatsen** bat ohartarazita. Josu Landa

Ez hortzen azaleko arrastorik, ez esmalteko itzalik, ez ertzetako **akatsik**, irribarre pasakor hartan ezertxo ez zen izan nire oroimenean irarrita geratu ez zenik. Koro Navarro

Hala ere, **akats** bat bilatzen nion haren azalpenari: zuhurregia zen egia izateko. Pedro Alberdi

Izaki **akatsik** gabeak dira, baina zango bat edo esku bat falta balitzaie bezala da. Ander Irizar

Nik, berriz, erakutsi diot nola, beira-xafla oraindik beroaren gainean berun urtua itsats daitekeen, eta hala ispilu ez oso handi baina argitsu, **akats** gabe eta urte luzez dirauenik lortzen dela. Juan Garzia

Neska lodi, baldarra zen, eta oso gutxitan lortzen zuen saltoekin batera konpasean kantatzen zuen leloa **akatsik** gabe bukatzea. Anton Garikano

Argi utzi behar da merkatuak ere huts egiten duela, **akatsak** dituela, asko eta handiak gainera. Iñaki Heras

Emaztea errainarekin garatzen ziren pataska etengabeez aspertuta zegoen; Marysek alabaina hutsak eta **akatsak** baizik ez zizkion aurkitzen, eta bakarretan Jakes semeak, andrearen ildotik, erasiaka erabiltzen zuen. Itxaro Borda

Halaz guztiz, gogoz kontrako dohain horrek bazuen oinarrizko **akats** bat. Iñaki Mendiguren

Soka lotu dioten gizonek ezer ikusi ez, eta heuk ikusi **akatsa**? Edorta Jimenez

Norbaitek komentatu zuen - eta denok onartu genuen - Darcyren pertsonaia perfektua iruditzen zitzaiola, perfektuegia aukeran, eta orduan, gizonak, ikasmahaiaren gainean pixka bat bermatuz, ea ez genuen uste **akatsen** bat zeukanik galdetu zigun. Iban Zaldua

Eta eskerrik asko Jose Antonio Azpiroz, Valentin Olaetxea, Jose Antonio Sarasola, Eskarne Mujika eta anaia Mikeli, itzulpen honetako **akatsak** zuzentzen eta ertzak leuntzen hartutako lanarengatik. Antton Olano

Akatsen bat egon behar zuen. Alberto Ladron Arana

Txikitandik eduki **akats** hori, sekula ez bainaiz izan hasitako gauza bat amaitzeko, ez eta bildumarik gutiziatuena ere. Hasier Etxeberria

Gizon zuzena zen Noe eta **akatsik** gabea bere garaikoen artean, Jainkoak nahi bezala jokatzen baitzuen. Jose Antonio Mujika

Akatsik gabe idazten eta irakurtzen ikastea lortu zuen. Joseba Urteaga

Jakina, bere **akatsak** ere bazituen. Mikel Hernandez Abaitua

Ez dago itzuriko zaidan **akatsik**, eta horixe da inpotentzia. Koro Navarro

Adelak ama baten begiez epaitzen ninduen, betiere **akatsak** gutxituz. Juan Kruz Igerabide

Akats bakarra, sobera solasturia izatea, nire beheraldi alkoholikoetan batere komenigarria ez zena. Aingeru Epaltza

Baina aurreko horiek (ez existitzearen **akatsaz** gainera) optika-tresnak dira soilik. Juan Garzia

Euskara giputzak bere alde zituen ezaugarri linguistiko eta soziolinguistiko horietaz gainera, Bizkaiko euskararen **akatsak** ere ikusi zituen Mogelek. Koldo Zuazo

Gaur nire konputagailu maiteak sufritu beharko du nire **akatsak** zuzentzen. Iñaki Zabaleta

Nik neuk ez nuke nekerik hartuko horrelako harremanak pentsaezinak direla argudiatzen, baina ez dut ezagutzen begi-bistako **akatsik** ez duen proposamenik. Itziar Laka

Zero **akats**. Patxi Iturritegi

Denverrek kasu egin zion, zaindu zion lo sakona, entzun zion arnasa neketsua, eta, maitasunak eta bere baitan ernetako nagusitasun arriskutsu batek bultzatuta, beraren **akatsa** balitz bezala ezkutatu zuen Maitearen inkontinentzia. Anton Garikano

Liburuaren **akatsak** adina amorrarazten ninduen **akatsaren** arrazoia ez jakiteak. Anjel Lertxundi

Orduantxe egin nuen **akatsa**: Lander Garro

Hala ere, bi **akats**, zein baino zein larriagoak, antzeman ditut zure jokabidean. Josetxo Azkona

Aitortzak Agustinen autobiografia da, baina **akatsak** eta bekatuak baino areago Kristautasunera nola etorri zen erakutsi nahi digu. Imanol Unzurrunzaga

Horrexek egiten gaitu gizakiak diferente beste animalia guztien artean, baina, aldi berean, erantzukizun bat leporatzen digu, hutsak eta **akatsak** geure ardura izango baitira. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondoekin)

Ataievitx Niazov lehendakariak "**akats** historikoak" leporatu dizkie Esenoven liburuei. Berria - Kultura

Perfekzioaren eta edertasunaren sinboloa da Michelangeloren David-a, baina ez da perfektua, **akats** anatomiko bat baitauka: bizkarreko gihar bati erliebea falta zaio. Berria - Kultura

Beslanen gertatutakoa saihets zitekeela eta "**akats** barkaezin" baten ondorio izan zela esan zuen atzo Jevgeni Abrashin Kaukaso Iparraldeko Armadako buruzagiordeak. Berria - Mundua

Oherakoan miaketa egin ziezadaketen, eta afaldu bitartean irakurri nuen sozialak berak eginiko oharra, **akats** ortografikoetan zuen ezagun. Koldo Izagirre

Itsuak ez ikustea ez da **akats** morala. Joxe Azurmendi

Akats larria, batzuetan, gure ondasun guztia keinu bat izan daitekeenean. Harkaitz Cano

-Komunista naiz, aita bezala - jarraitu zuen Adelak - orain nabilen alderdi hau ez da gerra garaikoa bera, nahiz eta agintari batzuk ordukoak izan eta **akats** larrien ardura eduki. Juan Kruz Igerabide

Bi pertsona-mota ziren munduan: beren zorigaitzak digestio txarrari, guruinei, **akats** pertsonalei egozten dizkietenak batetik, eta bestetik beren malurra inguruari, ingurukoei, gizarteari egozten dietenak. Iñaki Iñurrieta

Zeren, nahiz eta lehenkiak zer diren jakin ez, zeruko fenomenoetatik euretatik eta beste hainbat arrazoitatik baieztera ausartuko nintzateke munduaren izaera ez dela jainko bidez guretzat sortua izan: hain **akats** handiz hornitua baitago. Xabier Amuriza

Zertarako erakutsi ororen aurrean gure bizitzaren miseria eta gure **akats** goibelak, jendea gure erresuma honetako bazter lekuetatik eta zokogune galduetatik ateraz? Jose Morales

Barbarossak oso idaztankera arraroa zuen eta **akats** gramatikalez betetako eskutitzak idazten zizkien bai etxeko jabeari bai hartzekodunei edo ahaideei [...] Pello Lizarralde

Eskerrak Txapli zuhur egon zen **akats** teknikoa konpontzeko... eta gitarra-jolea kolkotik helduta oholtzara igoarazteko. Unai Iturriaga

Lehenengo lana, hortaz, **akats** txiki horiek ahalik eta gehien, posible zen bezainbestean ezkutatuko zituen guardia pretoriarra osatzea izan zen. Jon Alonso

Akats gaitza litzateke ustea sintaxi gorputz gabe bat dagoela, espazioan banaturiko materiazko unitate horietatik at. Isabel Arrigain

Bigarren **akats** nagusia: iluntasuna. Txema Ramirez de la Piscina

Izan ere, barne-**akats** fisikoa zegoen haren aberastasunen izaeran, alferreko bihurtzen zituena, eta akats hori egunez egun hazten zen. Iñaki Iñurrieta

Akats estrategiko larria litzateke hori. Xabier Kintana

Beste anaia askorekin ere berdin gertatzen zen: haien **akats** ezkutuak eta bertuteak garbi asko ezagutzen zituen San Frantziskok, Kristok azalduta. Askoren artean

Beti loturik dauden zakurrek **akats** psikologikoren bat edo asko izaten dituzte. Gotzon Garate

Eredutik hain hurbil, eta **akats** nabarmenik gabe! Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bestalde, Laclosek berak aitzinsolasean garbi adierazten du estiloari ematen dion garrantzia: gutunen estilo **akatsak** aipatzen ditu gaitzesgarriro, baina gutunon estilo aniztasunari merezimendu irizten dio. Jon Muñoz

Duela bi edo hiru mendeko historia eta gaurkoa ezagutzen dituenak ikus dezake nola luxuaren eta nagitasunaren baitatik sortu ziren bertuterik gozoenak: gizatasuna, onegintza, giza **akatsen** tolerantzia. Juan Martin Elexpuru

Saiatzen da aurreikusten nolakoa izango den geroko haurra, geroko heldua; zein izango diren, alegia, haren egoera, haren organoak, haren forma eta haren forma **akatsak**, halakorik izatekotan. Juan Garzia

Hilak joan hilak etorri, lanak agintzen dizkie, lanok bildu, irakurri eta oharrak idazten dizkie, puntuazio -, ortografia - eta erabilera-**akatsak** zuzentzen, argudio ahulen ondoan galdera-markak ezartzen, idazlan bakoitzari kritika labur eta adeitsu bat eransten. Oskar Arana

Garai bateko errege eta handikiek, errege eta handiki zirela argi eta garbi erakusteko, hain zuzen, ortografia-**akatsak** egiten zituzten, propio, beren idatzi bakanetan. Joxerra Garzia

Nik ortografi **akatsak** zuzendu nizkion, bestelako aldaketarik ez baitzidan onartu. Ramon Saizarbitoria

Lehendik ere egina nuen, baina, berezko simetria-**akatsen** ondorioz, arazo handiak agertzen ziren: inperfekzio txikienek prozesu osoa desegonkortzen zuten. Fernando Morillo

4 ***akats absolutu*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***5*** *agerraldi)*

Legelariak, akatsez mintzo direnean, dela egitatezko akatsez, dela akats juridikoez, ez dira **akats absolutuez** ari, gizakien iritziez baizik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortaz **akats absolutua**, egoerarik okerrenean, estimatzailearen desbiderapen tipikoa "k" aldiz izango da, hots: ETC-zientzia, zuzenbidea

Datuak 1985etik 1989ra artekoak dira, eta sistema bakoitzeko **akats absolutuak** eta aurkitutako akatsen ehunekoak erakusten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***akats erlatibo*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi)*

Gaur egun, Amedok jarraitzen du esaten bahiketa hura "**akats erlatiboa**" besterik ez zela izan, sobera dakienean itzelezko hanka-sartzea izan zela beraiena. ETC-prentsa

Formula hau, ur lurrunketaren oreka presioa ezagutzeko erabiltzen denean, Buckek, gehiegizko **akats erlatiboa** %0,20 baino txikiagoa dela baieztatu du -20 °C eta 50 °C artean. ETC-entziklopedia

6 ***akats kraneofazial*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi)*

Akats kraneofazialak kraneoari eta aurpegiko hezurrei eragiten dioten asaldura muskulueskeletiko kongenitoak dira. Arku faringeoen eraketa akastunarekin erlazionatuta daude. ETC-entziklopedia

7 ***akats sistematiko*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***20*** *agerraldi)*

Bost elkarrizketa dira guztira, eta txandaka, jaramon egiten die bostei, dela ikasleen **akats sistematikoak** detektatzeko, dela mintzasaioa nondik nora bideratuko duen aurreikusteko. ETC-literatura, saiakera

Gobernuen erantzuna deskoordinatua izaten da, eta **akats sistematiko** larriak ditu; besteak beste, trafikatutako haurren zaintzari dagokionez?. ETC-prentsa

Ez nuke esango **akats sistematikorik** zegoenik, baina gauza batzuekin ez geunden ados. ETC-prentsa

Baina lehen-lehenik gogorarazi beharra dago zein den **akats sistematikoen** eta halabeharrezkoen arteko bereizketa klasikoa. ETC-literatura, saiakera

Akats sistematikoak beti doaz tekniken prozesuak ulertzeko hutsuneekin loturik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Isuri kognitibo hau joera kognitibo unibertsala da, eta arrazoibide induktiboaren **akats sistematikoa**. Jendeak joera hori erakusten du informazioa modu selektiboan biltzen edo gogoratzen duenean eta beste informazio jakin bat gutxietsi edo baztertzen duenean. ETC-entziklopedia

8 ***akats tasa*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***15*** *agerraldi)*

Ariketa ebazteko, ekoizpenaren definizio hau erabiliko dugu: **akats-tasa** jakin bat izanik, azalera jakin batean akatsik ez egoteko probabilitatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Elementu baten **akats-tasak** eta konponketa-tasak ezagututa, honako hau da elementu hori aipatutako bi egoera horietako batean egoteko probabilitatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala ere, kalkulatu dugunaren arabera, **akats-tasa** ez da handiegia (% 10-20 ingurukoa). ETC-zientzia, zuzenbidea

Akats arruntak, non **akats tasa** txikiagoa eta iraunkorragoa den. Akatsak ez dira ekipoari dagozkion arrazoiengatik, baizik eta ausazko kanpo arrazoiengatik. ETC-entziklopedia

9 ***akatsak akats***

Akatsak akats eta hutsak huts, garai latzenetan erreferentzia izan da palestinarrentzat. Berria - Mundua

Sutsu defendatzen du Madariagak taldeko kirol zuzendariaren lana, **akatsak akats**. Berria - Kirola

Akatsak akats, Magda Goetzek ongi nabaritu zuen beheko angeluko ezker partean zegoen teilatu-hegalaren gainetik, hain zuzen, txori saldotxo bat ari zela pasatzen goiz aratzean. Josetxo Azkona

Pasarelako gloriatik zimurren miserietara jausitako modelo batenak izan zitezkeenak, edo Jainkosa erori batenak, eta atsegin-atsegin nituenak, **akatsak akats**. Joan Mari Irigoien

Soldadu konpaini bat pasa da hemendik barrena eta, pasaeran, bertako hiru neska eraman dituzte hartuta; zein zirenik ez dizut esan nahi; itzuliko dira agian eta, **akatsak akats**, on ala txar, emaztetzat hartuko dituztenak ez dira faltako. Patxi Ezkiaga

10 ***akatsik gabe***

Orduan hiztegi hori Kristinaren xarma doi bat itsusten zuen orbantzat nuen - **akatsik gabea**, Jainkoa bakarra, erakutsi ziguten fraideek -. Aingeru Epaltza

Hura bai zorioneko bizitza, **akatsik gabea**, ondasun gorderik gabea, guztietan guztia izango den Jaungoikoaren gorespenetan eskainia! Imanol Unzurrunzaga

Bildotsa **akatsik gabea**, aharikoa eta urtekoa izan dadila, arkume edo ahantxume. Patziku Perurena

Errealismoaren eskolan txertatuta, sofistak ez luke onartuko eredu (parádeigma) politiko **akatsik gabea** eta guztiz aratza - Platonek berak zeruan, jainkoen artean kokatzen duena, hain zuzen (Platon, Politeia, IX, 592b) -. Askoren artean

Ofizialaren portaera ere aipatu du: jendarmeen "zakarkeriaren" aldean, "zentzuzkoa, neurtua, argia eta **akatsik gabea** ", hala deskribatu du. Urtzi Urrutikoetxea

11 *akatsik gabeko*

Perfekzioa, **akatsik gabeko** unea, erabateko zoriona, orainaldi betea. Lourdes Oñederra

Gero, **akatsik gabeko** apaizak, legezale zirenak, aukeratu zituen. Elizen arteko biblia

Marrazkia hobezina zen, **akatsik gabekoa** , irudiak ezin hobeto margotuak eta amaituak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hiltzaileek prestatzen dituzten plan biribil, **akatsik gabeko** horiek... Antton Olano

Beraz, beste keinu horien bitartez ikusiko balitz geroaldian hitz egiten duenak bere hitzak eskubidearen **akatsik gabeko** transferentziarako baliagarri izatea nahi duela, orduan, baliagarritzat eman behar dira. Esteban Antxustegi

- "Ez zagok **akatsik gabeko** libururik", diost sarritan neureak. Iñigo Aranbarri

12 *merkatuaren akats*

Kanpo eragin horiek gauza bazterrekotzat hartzen dira, **merkatuaren "akats** " bat balira bezala. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

13 *produktuaren akats* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Produktuaren akatsa produktu baten diseinua, erabilera-propietateak eta fidagarritasun estandarra, kalitatea hitz batean, gutxitu egiten dituen eragozpena da. ETC-entziklopedia

Fabrikatzailearen edo inportatzailearen erantzukizuna ez da gutxiagotuko **produktuaren akats** batek eta hirugarren baten esku-hartzeak batera sortu dutenean kaltea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kapitulu honetan aurreikusitako erantzukizuna gutxiagotu edo kendu ahal izango da, kasuaren inguruabarren arabera, batera eragin badute kaltea **produktuaren akatsak** eta kaltedunaren edo kaltedunak beraren erantzukizun zibila duen beste pertsona baten erruak. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

akats asko (14); **akats asko egin** (5); **akats bakar** (7); **akats bakar bat** (6); **akats bakarra** (11); **akats bat** (88); **akats bat da** (5); **akats bat dela** (4); **akats bat egin** (6); **akats bat izan** (13); **akats bat zuen** (6); **akats batek** (10); **akats batek eragin** (4); **akats baten** (8); **akats baten ondorioz** (4); **akats batengatik** (8); **akats bati** (6); **akats batzuk** (11); **akats bera** (8); **akats berbera** (5); **akats edo** (7); **akats eta** (29); **akats eta guzti** (7); **akats gabeko** (4); **akats guztiak** (10); **akats guztien** (6); **akats handi** (6); **akats handi bat** (6); **akats handia** (16); **akats handia egin** (5); **akats handia izan** (4); **akats handiak** (4); **akats historikoa** (4); **akats hori** (28); **akats horiek** (15); **akats horren** (5); **akats izugarria** (7); **akats larri** (11); **akats larri bat** (6); **akats larria** (33); **akats larria da** (12); **akats larriak** (18); **akats nagusi** (7); **akats nagusia** (6); **akats politikoa** (5); **akats txiki** (12); **akats txiki bat** (5); **akats ugari** (8); **akats ugari egin** (4); **akatsa da** (17); **akatsa dela** (22); **akatsa egin** (4); **akatsa eta** (5); **akatsa izan** (34); **akatsa izan da** (6); **akatsa izan zela** (14); **akatsa izan zen** (6); **akatsa litzateke** (6); **akatsa zela** (4); **akatsak akats** (9); **akatsak akats** (9); **akatsak dira** (4); **akatsak direla** (5); **akatsak egin** (18); **akatsak egitea** (4); **akatsak egiteko** (5); **akatsak egiten** (8); **akatsak egon** (4); **akatsak ere** (13); **akatsak eta** (16); **akatsak ez** (14); **akatsak ez errepikatzeko** (4); **akatsak izan** (12); **akatsak onartu** (5); **akatsak zituela** (4); **akatsak zuzendu** (10); **akatsak zuzentzeko** (12); **akatsak zuzentzen** (6); **akatsen bat** (47); **akatsen ondorio** (4); **akatsen ondorioz** (5); **akatsetako bat** (6); **akatsetatik ikasi** (5); **akatsetatik ikasteko** (4); **akatsik egin** (10); **akatsik egin gabe** (4); **akatsik ez** (22); **akatsik ez duen** (4); **akatsik gabe** (37); **akatsik gabea** (28); **akatsik gabeak** (10); **akatsik gabeko** (22); **akatsik handiena** (6); **akatsik larriena** (5); **antolaketa akats** (4); **badu akats** (4); **baina akats** (12); **baina akatsak** (6); **batere akatsik** (4); **bedi akats** (4); **bedi akats guztien** (4); **beharreko akatsa** (5); **bere akats** (12); **bere akats eta** (5); **bere akatsa** (7); **bere akatsak** (13); **beste akats** (10); **beste akats bat** (4); **bi akats** (9); **da akats** (4); **dira akatsak** (5); **diren akats** (4); **diren akatsak** (5); **dituen akats** (5); **dituen akatsak** (8); **du akats** (5); **du akatsik** (5); **duen akats** (4); **edo akats** (6); **edozein akats** (5); **egindako akats** (7); **egindako akatsak** (10); **eginiko akatsak** (4); **ere akats** (5); **eta akats** (41); **eta akatsa** (5); **eta akatsak** (33); **eta akatsez** (4); **eta akatsik** (21); **eta akatsik gabe** (7); **eta akatsik gabea** (5); **ez akatsik** (4); **forma akats** (8); **forma akatsa** (8); **forma akatsak** (12); **forma akatsengatik** (5); **giza akats** (9); **giza akats batek** (4); **hainbat akats** (6); **haren akatsak** (8); **hori akats** (8); **hori akats bat** (4); **hutsak eta akatsak** (4); **inolako akatsik** (16); **inolako akatsik gabe** (7); **izana akatsa** (5); **nire akatsa** (4); **oso akats** (4); **segurtasun akatsak** (4); **zen akats** (5); **zenbait akats** (6); **zer akats** (5); **zituen akatsak** (5); **zuen akats** (5); **zuzenbide akatsa** (4); **zuzenbide akatsagatik** (4); **zuzenbide akatsagatiko** (5)

---

akatsgabe **ik akasgabe**.

---

akatu ik **akabatu**.

---

akazia *(orobat **alkazia** g.er.)* **1** *iz* zur sendoko zuhaitza, hostokietan banatutako hostoak eta mordo zintzilikarietan biltzen diren lore zuri usaintsuak dituena *(Robinia pseudoacacia)*.

On Camillok zerbait antzeman eta ikusi zuenean neska-mutil talde handitxo bat zela, eta buruan zihoana Meharra zela nabaritu zuenean, azpikeria guztia ulertu eta gogoa etorri zitzaion **akazia** bat ipurditik atera eta dinbi-danba hasteko. halako batean Sebastiao **akazia** baten azpian etzanik eta sorgorturik aurkitu zuen. Koldo Biguri

- **Akazia** baten pean. Jose Antonio Mujika

Jeep amerikano berrian eraman gaituzte **akazia** eta elorri ugariko paisaian zehar. Joseba Sarrionandia

Han goiko airea hiri barrukoa baino freskoagoa zen, **akaziak** loretan zeuden, uda bidean ginen. Anjel Lertxundi

Akaziak , bide bazterreko ezpelak handitu dira 18 hilabete hauetan. Marzel Etxehandi

Lorategi bat ikusi zuen amets artean, zuhaitz eta lorez betea, zedroz eta **akaziaz** , palmondoz eta erramuz, astigarrez eta olibondoz. Felipe Juaristi

Agurea ez zen haiekin elkartzen; bazekien berak non zen **akazien** eta elorrien loreek perfumatutako txoko bat, erreka itzalean geratzen zen leku batean, arrainak ugari biltzen zirena. Koro Navarro

Ezponda handiaren gainean haize handia zebilen, baina ur eta ezponda arteko lur zerrendan airea ia geldirik zegoen, **akazien** adar biluzien artean harrapatuta geratu balitz bezala. Koldo Biguri

Hareharrizko multzo baten -aingeru barrokoak, orkatz batekin jolasten- eta sastrakaren atzean gorderik, eta bi **akazien** gerizpean zegoen bankura. Anton Garikano

Dena den, zuhur jokatu zuen eta, ordu erdiren buruan, ibaitik atera, **akazien** azpira zuzendu eta zuhaixkaren ondora iritsi zen, baina arroparik ez han. Koldo Biguri

Ni ikusia nago elorrian, **alkazian** , gaztainean, lizarrean, pagoan, pagolizarrean, haritzean, eta beste zuhaitzadar askotan, baina, sekulan ez, esate bateko, intsusean, gorostian, edo urritzean. Patziku Perurena

2 (izenondoekin)

Teilatu zorrotzeko etxe gris bat zen eta atzealdetik **akazia** handi batek itzala ematen zion. Lopez de Arana

Bi jakintsuak parkeko leku bazter baterantz zihoazen, han baitzeukaten zain banku bat, **akazia** zaharren itzalpean eta parkeko beste bisitarien ezkutuan, hesi sarri bati esker. Anton Garikano

3 (hitz elkartuetan)

Euria egin berria zuen, eta belarra bustita zegoen, **alkazi** adarrak tantaka. Josu Zabaleta

Gero ezponda gainetik pasatu eta itzalpean esertzera joan zen, **akazia** sail baten azpira, eta hosto artetik diz-diz ikusten zen ura. Koldo Biguri

Tom eta biok kalearen beste aldean geunden, sasi-**akazia** handi baten enborraren atzean zuhurki kokaturik, eta ilobaren maitearengan gehien hunkitu ninduena izan zen haren keinuen erabateko askatasuna, halako axolagabetasun oharkabe bat, bete-betean unean bertan, orainaldi betiereko eta beti hedakor batean bizitzen uzten ziona. Oskar Arana

4 *akazia hiruarantza* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Akazia hiruarantza edo gleditsia hiruarantza ("Gleditsia triacanthos") Gleditsia generoko zuhaitz kaduzifolioa da. Azkar hazten da eta 40 urtetan 20-30 metro garai izan daiteke. ETC-entziklopedia

5 *zur beltzeko akazia* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Zur beltzeko akazia , latinez "Acacia melanoxylon", Australia Australiako ekialdeko espezie autoktonoa da. Herrialde hartan "Tasmaniako zur beltza" izenarekin da ezaguna. Zuhaitz hau altu eta azkar hazten da, 45 m baino gehiagora. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
akazia baten (3)

---

akeita *iz* kafea.

Gazte nintzela, behin baino gehiagotan entzun ohi nuen gizonezkoen lagunarte giroan **akeita**, txola eta txokorra hartzera zihoazela. Koldo Zuazo

Azkuek, Nafarroa Behereko Donostiri herrian entzundako hitza, bere hiztegian jaso zuen **akeita** itxurapean, eta erabilera zabala izan zuen harrezkero Euskal Herri osoan. Koldo Zuazo

---

akelarre *iz* sorginen gau bilera; festa giro muturrekoa.

Badakik hik ukuiluetako jenio hori, Akerbeltz, bazela **akelarreko** apaiz burua ere, eta **akelarreetara** joaten ziren emazte guztien potak jasotzen zituela uzkian. Anjel Lertxundi

Orgia bizi bat hasten zen bertan, denak harrapatzen zituena, lumagabeko emagazte daktilografoak zein ilegabeturiko gizaseme kontulari, orduko zuzendaritik hasi eta behe-beheko postuetaraino, atezainak barne, elbarri zibilak baitziren: meategi kontuzko paperen jirako rondo-dantza tristeak bere lekua uzten zion, arratsaldero, **akelarre** biziko larrujotze interklasista, publiko eta modu askotara txirikordatu bati. Juan Garzia

Ilunpetan ere, hango ikuzgailu eta idorgailu handiek, hango esekitoki luzeetan zintzilikaturiko arropek ez zuten **akelarre** baterako paisaiarik aproposena osatzen. Aingeru Epaltza

Akelarre besta batzuetan parte hartua zutela Hendaiako ondartzan edo hor nunbait. Herria

Akelarre elgarretaratze batean. Herria

Akelarretan, irudiz herabe, hegian egoten haiz, gin-kas edaten, mozkortu arte. Itxaro Borda

Halatan, munduko **akelarretara** bidali ordez, zigortu egin dute enegarren aldiz, eta bai eta ez esaten dutenen herrira bidali dute ostera Txerren. Anjel Lertxundi

Gaztainadi bat baztertu genuen lehendabizi: Mogelek ezin zuen bere unibertsitatea gaztainadi batean kokatu, gauza jakina baita gaztaina-saldak zer nolako erabilpen lubrifikatzailea izaten zuen **akelarreetarako** prestakuntzan. Anjel Lertxundi

Mesedez eta arren, bidaltzeko beste norabait; prest dagoela munduko **akelarretaraino** ere joateko; euskaldunek ez dutela inork tentatu beharrik ondo jan-edan eta alberdanian ibiltzeko. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
akelarre eta (3); **hendaiako akelarre** (3)

---

akemenestar 1 *izlag* Ciro Handiaren pertsiar dinastiari dagokiona.

Akemenestar erregimena bat-batean seleukotarren eta azkenean, Eufratesen mendebaldera, erromatarren erregimenak ordeztu zuenean. Iñaki Mendiguren

Jaroshti aldaeran, Asoka enperadoreari, **akemenestar** probintzia izandako Punjab-en zituen mendekoei Budaren irakaspenak adierazteko tresna eman zion. Iñaki Mendiguren

Pentsa genezake, **akemenestar** gobernu inperial tolerante baten babespean, zoroastrismoak nahiz judaismoak aurreratu egingo zutela Islamak lortu zuena. Iñaki Mendiguren

Deuteroisaias, Ezra eta Nehemias liburuen egileen begietan **Akemenestar** Inperioa Jahvek hautaturiko tresna zen judaismoa hedatzeko. Iñaki Mendiguren

Akemenestar, Erromatar, Kushan, Han eta Gupta inperioen eremuetan zertutako jardueren historiek erakusten zuten emaitza bi aukeratako edozein izan zitekeela. Iñaki Mendiguren

Arameraren garaipenik ohargarriena zera izan zen, bere idazkerak arrakasta izan zuela kuneiformea ordezten pertsieraren adierazpide gisa **akemenestar**-aldiaren ondoren. Iñaki Mendiguren

Honela, **akemenestar** inbaditzaileen aurkako garaipenak, handik berrogeita hamar urtera, Zibilizazio Helenikoaren kolapsoa ekarri zuen. Iñaki Mendiguren

Espero izatekoa zen mundu helenikoaren eta siriakoaren artean ordu arte mugikor izandako ekialdeko eta mendebaldeko mugak **akemenestar** eta kartagoar inperiogileek marrazturiko lerroen arabera ezarrita geratuko zirela. Iñaki Mendiguren

2 *iz*

Bitxia izan liteke ikuspegi honetatik Babiloniarentzat nagusitasun morala aldarrikatzea Niniveren gain, esanez Babiloniako erbesteratu judaikoei bizirik irauten utzi zitzaiela Babiloniaren ondorengo **akemenestarrak** berriro etxera bidali zituen arte, **Akemenestarrek** beren pertsiar ama-hizkuntzari pertsiar ama-lurrari bezain leku apala eskaini zioten inperioaren gobernuan. Iñaki Mendiguren

Probintzien gain gobernu zentralaren kontrolari eusteko komunikabide-sistema inperiala erabiltzeko **akemenestarren** politika berriro agertzen da Erromatar Inperioaren eta Arabiar Kalifaldiaren administrazioan. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
akemenestar eta kartagoar (3); **akemenestar inperioa** (9); **akemenestar inperioak** (4); **akemenestar inperioan** (5); **akemenestar inperioaren** (7)

---

akeo 1 *iz* Akaia izeneko Peloponesoko antzinako eskualdeko biztanlea.

Horiek eta historikoki egiaztaturiko beste adibide batzuek sinesgarritasuna ematen diote zerako tradizio hari, alegia, **akeoen** konkista-uhinak lehertu eta geratu egin zirela Troia irentsi ondoren, eta Agamenon eraila azken gerra-jaun panakeoa izan zela. Iñaki Mendiguren

Korinto, berriz, nolanahi aukeratu zuen **Akeoen** Ligako kideen artean tratamendu bera emateko. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo gisa)

Pirata **akeoak** panfiliar kostarekin lehen kontaktuak zertzen ari ziren garaian gutxi gorabehera. Iñaki Mendiguren

---

aker 1 *iz* ahuntzaren arra.

Emakumeak **aker** bati eusten dio, soka motz batekin lotuta. Oskar Arana

Gainera, **aker** bat barkamen-oparitarako, zeuen bekatuen barkamen-ohikunea egiteko. Elizen arteko biblia

Debrua ere ikusia omen zuen, batean **aker** baten itxuran. Herria

Arabiarrek, berriz, abereak ematen zizkioten [Josafati]: zazpi mila eta zazpiehun ahari eta beste horrenbeste **aker**. Elizen arteko biblia

Akerra ere ikusi zuten zalditegian, zeren eta, antzinako herri-sineskera zahar baten arabera, abere hori eduki beharra baitago zaldien artean. Jose Morales

Akerra ostiko egiten saiatzen da ostera ere, kulunkatu egiten da. Oskar Arana

Gaitzen bat denean, **akerra** gaixotzen duk lehendabizi, eta horrek abisu ematen zietean baserritarrei gainerako aziendekin neurriak hartzeko. Anjel Lertxundi

Gero, apaizek **akerrak** hil eta aldare gainera isuri zuten odola, Israel osoaren bekatuen barkamena eskatuz. Elizen arteko biblia

Eta, nola fraideak baitzuen, bere eskolako guztiek bezala, **akerraren** usain gaixtoa, arropa kirastua gainetik kendu, eta arropa zuria eta fina jantzi zuen haren orde. Joan Mari Irigoien

Akerrari sokatik tiraka abiatuko da aterantz. Oskar Arana

Zezenen eta **akerren** odolak ez baititzake bekatuak desegin. Elizen arteko biblia

-**Akerra** deabrua izango da, ezta? Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bai ale bikaina **aker** zahar hau, hain adoretsua eta zintzoa, eta lasaia! Oskar Arana

Torto txikia zenean, **aker** beltz bat hazten omen zuten beren baserriko ukuiluan, bertako azienda-jendea gaixotu ez zedin. Anjel Lertxundi

Erran iezaiok hurrengoan arrazoin duela, zeren bart gauean ikusi baititut teleskopiotik ehun sorgin, **aker** beltza airean zeramatela. Joan Mari Irigoien

Aker beltzaren seme horrek, saldu? Anjel Lertxundi

Egun berean bereizi zituen Labanek **aker** marradun edo pintoak, ahuntz nabar edo pintoak eta ardi beltzak. Elizen arteko biblia

Asteartean Oosthuizen doktore albaitaria etorri arte itxarotea dauka, baina gaixo hau antzu geratuko da edonola ere, eta nahi izango ote du emakume honek **aker** antzurik? Oskar Arana

Zabor pila batean, herriko **akerra** ahaleginean ari zen aurreko urteko palmondoaren hostoak txikitu nahian. Koro Navarro

Sekulako **akerra**, bizarra elurrerainokoa eta adar luze batzuk... Pablo Sastre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artzain bat aurkitu zuen landan ahuntz- eta **aker**-talde bat bazkatzen. Askoren artean

Ahuntz eta **aker** mordoaren artean arditxo bat bakarra zegoen, apal eta lasai larrean. Askoren artean

Horrela, israeldarrek ez diete aurrerantzean sakrifiziorik egingo **aker**-irudietan gurtzen dituzten sasijainkoei, Jaunarekiko desleial jokatuz. Elizen arteko biblia

Grigori Yefimovitxek -zikina, ezjakina, zabarra, lizuna, **aker**-usainduna- erabat liluratu zuen gortearen inguru-minguruan ibili ohi zen jende txolin eta kaskarina. J.M. Olaizola "Txiliku"

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Johannesburgon egoitza duen Nazioarteko Aferetarako Hegoafrikako Institutuko kide Ayesha Kajeek dio neoliberalismoa "ordain-**aker** erraza" dela: "Gure buruzagiek huts egin duten arloetan gure erantzukizuna ere onartu behar dugu. Berria - Mundua

Tenetek CIA ordain **aker** bihur zedin utzi zuen. Berria - Mundua

5 hainbat tresnaren pieza.

Amarren azpitik bi **aker** jartzen dira; trokola txikotekin **akerren** gainean lotzen da; trokolaren azpian erregela bat jartzen da, bi oin inguru luzekoa eta sei hatz zabalekoa, eta lau hatz lodikoa. Santiago Iruretagoiena

Zutabe txikienaren gainean **akerra** dago, kuxina ere deitzen dena; luzean bi zulo eta erdi ditu, beste hainbeste altueran eta zulo baten hiru laurden zabalean. Santiago Iruretagoiena

Egur horien atzealdeko aurpegietan, elkarrengandik banantzen diren tokian, bi **aker** jartzen dira, eta **akerretan** tornuaren buruak sartzen dira, ardatza errazago ibil dadin. Santiago Iruretagoiena

Amarren azpitik bi **aker** jartzen dira; trokola txikotekin **akerren** gainean lotzen da. Santiago Iruretagoiena

Tornu horren ziriak zentro bezala jarriz **akerretan**, palankak tornuaren zuloetan sartzen dira. Santiago Iruretagoiena

6 ***aker-aihen*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Atxaparra, sasiama, ahuntz-hostoa edo **aker-aihena** ("Lonicera") Caprifoliaceae familiako genero baten izen arrunta da, barnean 526 espezie, horietatik 108 onarturik, dituena. ETC-entziklopedia

7 ***akerraren adarrak baino okerrago***

Halako batean bere obra bukatutzat eman zuenean, etxekoandreak, ikusirik gailua, hodiak eta enparauak zein bere aldera eta denak **akerraren adarrak baino okerrago** zeudela, honela esan zion, negar-zotinen artean oihuka. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahariak eta akerrak** (3); **aker bat** (19); **aker bat barkamen** (10); **aker eta** (4); **aker zahar** (4); **akerrak adarrak** (3); **akerrak ere** (3); **bi aker** (3); **eta aker** (9); **eta aker bat** (3); **eta akerra** (3); **eta akerrak** (6); **eta akerren** (7); **eta hamabi aker** (3); **hamabi aker** (3)

---

akerki *iz* akerraren haragia.

Zelatariak, barruntariak, lantzariak harat honat dabiltza beren azkonak bizkarrean, eta asko gazteluko mahaian esertzen dira ipuzcoanoei ebatsitako **akerki** errea jatera. Patziku Perurena

---

akerko *iz* akertxoa.

Bidean, baserri batean aske zeukaten **akerko** bizartsu eta adar handi baten ondotik pasatu behar izaten genuen egunero eta Marisitak beldur handia zion. Jon Maia

---

akertxo *iz* aker txikia.

Judu hark **akertxo** triste nekatu xamarra ematen zuen. Matías Múgica

---

aketiren *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* aker zikiratua. ik **aketo**.

Euskaldunek egiten duten folklorea, bestalde, euskal folklorea da bederen; "euzko"ek erderakaden artean egiten duten anka-altxatze "euzkadiano" hori, aldiz, beti iruditu zait zikiroen dantza: irendu ondoren, **aketirenak** kolorez jantzi, eta jauzi... ETC-literatura, saiakera

---

aketo *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* **1** *iz* aker zikiratua. ik **aketiren**.

Une bat geroago besoa pertzean sartu eta **aketo** beltz bat atera zuen beeka. ETC-literatura, saiakera

2 *iz* pertsonez mintzatuz, gozotasunik gabea. ik **zakar**.

Zuek esan dezakezue hitza bete ez duten **aketo** batzuk garela eta ordainarazi diguzuela. ETC-literatura, saiakera

---

akets *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* *izond* moldakaitza; kamutsa.

Abereen adarren adantzak mota askotakoak izan daitezke, badira adar **aketsak**, adar apalak, adar batuak, adar kuloak (lira antzekoak), adar laburrak, adar motzak (bat hautsirik), adarokerrak, adar zabalak, adarzutak. ETC-literatura, saiakera

O, ez baitira **aketsak**. ETC-literatura, saiakera

Kontua da hemengo %17 hori ez dela nahikoa ezta, gaur gaurkoz, Espainian ere, eta bere politika gauzatuko duen bidelagun **aketsaren** bila dabil. ETC-prentsa

aketta *iz*

Andrazkoek kafea hartzea gaizki ikusita zegoen garaian, **aketta** izeneko belar ura hartzera zihoazela esan, eta kafea hartzen omen zuten gizonen ezkutuan. Koldo Zuazo

aketz 1 *iz* zerri arra, emeak ernaltzeko erabiltzen dena.

Gaur egun 320 urde badaude eta 54 **aketz**. Herria

Zerri **aketzak** kanpoan egoten ziren, eta askoz ere gutxiago ziren, ezkongaiek asko eraman baitzituzten beren oturuntzetarako. Juan Kruz Igerabide

Bertan idorotakoak ditu euskararen thaesaurusean gehien estimatzen dituen eleak: **aketza** (ninfómana), baina batez ere Zolaren eleberri batetik aterea dirudien hau, sakristia lurrina kendu gabea: aje-umea (hijo tarado, "los hijos del sábado", "alkoolez ondo beteta sortuak")... Iñigo Aranbarri

akeztu *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* zikiratu, antzutu.

Akeztuko ez den amodio-kantu xehe. ETC-literatura, saiakera

akiakula *iz* aitzakia, estakurua.

Laster eukiko dogu danontzat lege bat, al danik errezena, garbiena ta onena, ta orduan ikusiko da irakurlien esate ori euren alperkeria estalduteko **akiakula** bat zan edo ez. Patxi Altuna

akialdi *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* akitze garaia.

Bide erdian gertatu ohi diren **akialdi** eta damualdi oro tiro batez konpontzen omen du Harrietek. ETC-literatura, saiakera

Ez zuen atsedenik **akialdian**. ETC-literatura, saiakera

akiarazi, akiaraz(i), akiarazten du *ad* nekarazi.

Etxean jateak on egiten zion, bistan zenez, eta berak kontrakoa iragarri arren, Honeyk ez zuen **akiarazi**, ez eta mendean hartu edo beraren espiritua zanpatu ere. Oskar Arana

Deus ere ez erraiteko mintzo direnek aski **akiarazten** dute. Eneko Bidegain

Barkamena galdegin beharko dio, hola **akiarazirik** eta bazterturik. Eneko Bidegain

akidura *iz* nekea, unadura.

Akidura, asperdura, horren guztiaren beti-berdin gogoaren ergelgarria. Oskar Arana

Ebakuntza-gelan betiko lo geratu izan banintz, ez neukake **akidura** ere sentitu beharrik. Hasier Etxeberria

Arratsalde batez, Dominique eta biak Zugarramurditik itzuli berriak zirelarik eta **akiduraren** ondotik pausatzen ari zirelarik, Gartziak ahoz aho zebilen berri bat gaztigatu zien. Elena Touyarou

Hasieran, Tomek **akidurari**, larritasunari, goseari, balizko hainbat arrazoiri egotzi zion haren isiltasuna. Oskar Arana

Kemena zerion haren aurpegi zargalduari, eta, aldi berean, **akidurak** urratuta ageri zen. Jon Muñoz

Akidurak emeki emeki hartzen ari nau. Piarres Aintziart

Gauero gauero, bi, hiru, lau, hamaika orduz, eta nekearen **akidurak** lotara artean, bulegoko liburuak eta izkribuak oro miatzen nituen. Txillardegi

Gure denboretan ere, zure autoan Ibañetatik beheiti heldu bazara, erromesak ikusten ahal dituzkezu pikorka, hatsa eta urratsa labur, izerdia ugari, uste ez zuten **akidurak** bentzutuak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Egia erran, kontzentrazio zelaian hiru zelaigune badira eta horietan bizia arras desberdina da: diziplina gunea, huntan egun guziz, gau guziz, hotzak, goseak, **akidurak**, eritasunak, bortizkeriak beren berexketak egiten dituzte. Michel Oronoz

Niri dagokidanez, bidea ez zait hain idilikoa iduritzen, **akidurak** lekuei errealitate prosaiko bat emaiten baitie. Piarres Aintziart

Gerla zikin horrek ahuldu ninduela, otoitza ahantzirik edo, debrua sartu zitzaidala **akidurak** egin arrailduratik. Piarres Aintziart

Nekez eta **akiduraz** eternitatearen ateetan lurrari ostikoka ari den herri bat. Josu Zabaleta

Argi azkorria arte ez nintzen gelaratu, **akiduraz** eta logalez leher gaizto. Jon Muñoz

Erran nien orobat ezen, hainbat gautan ezin lokarturik ibilia nintzenez, saiatu nahi izan nuela **akiduraz** lokartzen. Jon Muñoz

Joe Frazier ere nekaturik zegoen, irrati narratzailearen arabera, baina irabazlearen **akidura** eta mindura bestelakoa da. Joseba Sarrionandia

Aurpegia desegina zuen, xuri-xuria, iduri **akidura** handi zerbaitek jana, begiak aldiz gorri-gorriak, negar eta negar ari izana balitz bezala. Janbattitt Dirassar

Azken bi urteetan Verner abaildurik eduki zuen **akidura** lausoa desagertu egin zen. Jose Morales

Narrasti higuin bat bezala egiten dut aitzina, ukondoz eta belaunez lurrari atxikita gorputz ahul hau herrestan eramanez, oxigeno urriz, **akidura** mingarrian. Koldo Izagirre

Suzko egunen **akidura** erraldoiak udalatzen zuen Sebasen gogoa. Itxaro Borda

Joe Frazier ere nekaturik zegoen, irrati narratzailearen arabera, baina irabazlearen **akidura** eta mindura bestelakoa da. Joseba Sarrionandia

-Horregatik nago Aranjuezen -erantzun zidan, ez serio ez txantxetan; **akidura** puntu batekin, beharbada. Ramon Saizarbitoria

Bilkuratik etxera heldu nintzen gau hartan, **akidura** ziztarik ez nuen sentitzen; alderantziz, sekula ez bezala gose nengoen. Itxaro Borda

Halatan bada, gaur arte golkoan gorde ditut trenean ezagututako emakumearena eta ondoren, Basileara bidean, bizi izan nuen bihotz **akidura**. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akidura eta** (3); **akiduraz eta** (3); **eta akidura** (6)

akigarri *(orobat **akitgarri** g.er.) izond* nekagarria.

Basoko lan **akigarria** ihesbide izan nuen hasieran, baina azken garaietan nekeak ere ezin zituen nire buru barneko irudi beltzak uxatu. Alberto Ladron Arana

Eta egunak, asteak, hilabeteak, urteak, **akigarri** beren astuntasunean, bat-batean arindurik, 17 segundotan gertatutako lokamuts iheskor bihurtzen zirela. Txillardegi

Gizakiek, ariman astuntasun **akigarria** sentitzen duten bezala, zertatik datorren eta paparra zanpatzen dien gaitz puska hain handia nondikoa den jakin ahal balute, ez lirateke horrela biziko, gehienean ikusten ditugun moduan, zer nahi duten ez dakitela eta beti lekuz aldatu guran, zama uztekoa bailitzan. Xabier Amuriza

Gazi-gozo antzeko batekin esan zidan, egun haietako bere lan **akigarri** haren amaierak sentimendu kontrajarriak sortuko balizkio bezala: batetik lasaitu ederra, eta bestetik, akaso, nolabaiteko pena: ez dakit gauzak gehiegi behartzen ditudan baina irudipena dut esklabotza hartan gozamen moduko bat hartzen zuela, sakrifizioan gozatzen diren moja horiek bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Bat-bateko belztasunak, kiratsak eta min **akigarriak** bereganatu zuen Pippin eta gogoa iluntasunean murgildu zitzaion. Agustin Otsoa

Sentipen bera nagusitu zait guztietan, gozotasun **akigarri** bat. Josu Zabaleta

Barbeitok irri erori bat ageri zuen zigarro itzalia kentzea ahantzita zeukan ezpainetan, Dopazo tristetasun **akigarri** batek zeukan mukertuta, "Vladimir Ilich" errepikatzen zuen ahapean. Koldo Izagirre

Sosegurik gabeko amets horiek, amets azkengabe eta **akigarri** horiek. Juan Garzia

Edozein gisaz **akigarri** den lan bat gosturekin egiten baldin baduzu biziki ere hobekiago eginen duzu **akigarri** ez den lan bat gosturik gabe egiten duzun baino. Menane Oxandabaratz

Beharbada **akigarri** samarra zen ondoan edukitzeko, baina ez nuen desengainurik hartu. Oskar Arana

Hala zelarik, denak lotzen ziren finean beren egitekoari baina lan hura, ala egunekoa ala gauekoa, ez zen **akigarria**. Marzel Etxehandi

Lehen **akigarria** iruditzen nintzaion, eta bera ere bai niri; orain nik iritzia aldatu dut, baina aldatu ote du berak ere? Josu Zabaleta

Esan behar dut ez dagoela gauza gogaikarri eta **akigarriagorik** kontzentrazio-esparru berri batera heltzen zaren bakoitzean jasan beharreko buruhausteak baino. Urtzi Urrutikoetxea

Harat-honat emaniko azken orduak benetan **akigarriak** izan ziren. Alberto Ladron Arana

Beste batean, jolasa autoerreferentziaren eta literaturaren barruko baliabideen ingurukoa izango da, eta idazleak bere burua irudikatuko du idazkera zehatzaren bilaketa **akigarrian**. Berria - Kultura

Haatik, euren letaniatik hauteman nuen sarritan, ia era **akigarrian**, errepikatzen zen berba bat, gertaera, aldaketa, gorabehera guztiak adierazteko balio zien berba: hala juduen etxeetako izarrak "etorri" egin ziren, urriaren hamabosta "etorri" egin zen, Gezi-gurutzeak "etorri" egin ziren, ghettoa "etorri" egin zen, Danubio ertzekoa "etorri" egin zen, askapena "etorri" [...]. Urtzi Urrutikoetxea

Gaur ere tea bakarrik, eta berriro miaketa-azterketa guztiak, ezin **akigarriagoak**, alajainaBerak ere ezagutzen ez zituen erreserbetatik aterako du, gau honetan ere, lan **akigarriotarako** behar duen kemena. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akigarria da** (4); **akigarria zen** (3); **lan akigarria** (3)

---

akiloi *iz* ipar poloa; ipar haizea.

Zeren, **akiloitik** austrorako bide erdian, zeruak distantzia berdinera mantentzen baititu tropikoak, zodiako osoaren posturagatik. Xabier Amuriza

Ondoren Uda bero dator, ondoan Zeres haustuna eta **akiloiaren** ufa etesioak lagun dituela. Xabier Amuriza

Hark Egipto berorik handienean ureztatzen du, beharbada **akiloiek**, haize etesioak deritzen urtaroan, ibai-ahoen kontra putz egiten dutelako. Xabier Amuriza

Baliteke urtaro honetan euriak ibaiburuan mamiagoak izatea ere, **akiloien** putz etesioek hodei guztiak alde haietarantz batzen dituztelako. Xabier Amuriza

---

akilu ik **akuilu**.

---

akimendu *iz* akidura, nekea.

Baliteke **akimendu** hutsa izatea, Abiadura Handiko Egunetako neke soilak baizik ez egitea lo zure hezurretako habian. Hasier Etxeberria

---

akinotar *izond/izlag* Akinokoa.

San Agustinen eta Tomas **Akinotarrarengandik** hasi eta Kant geroztik Erich Fromm bera arte, aldiz, gehienak gehienetan, nolabait, aburu batekoak aurkitzen ditut nik: gizakiaren instintu eta beharretatik sortzen direla ongiaren edo maitasunaren kontrako joerak: gura eta nahietatik. Jenaro Garate

Eta *diligo* hitzak beragan duela bere etimologiaz 'aukeratzea', berariaz azpimarratzen du Tomas **Akinotar** Santuak: "'Dilectio'-ak 'amor'-en gainetik aurreaukeraketa suposatzen du, hitzak berak erakusten duenez.". Jenaro Garate

Horrela, bai Tomas **Akinotar** Santuaren eta baita ere Kanten iritzietan, gizakiaren eginbeharra legeren baten araberakoa da, ongiaren eta gaizkiaren bereiztailea legea izan ohi denez. Jenaro Garate

Arau eta balioen ziurtasun, absolututasun galdapena signifika lezake hemen **Akinotarrak**. Joxe Azurmendi

---

akitaniar 1 *izond/izlag* Akitaniakoa, Akitaniari dagokiona; Akitaniako biztanlea.

Hobbesen ondotik, bide berriak eta ez beti hain okerrak ireki bazituzten ere beste pentsalari heterodoxo batzuek, hala nola, John Locke ingeles protestanteak, Baruch Spinoza holandar juduak eta argien mendean Charles Montesquieu **akitaniarrak** edo Jean Jacques Rousseau suitzar protestanteak, aitor dezakegu, filosofia politiko modernoaren historian zehar, Leviathanen idazlea izan dela, gaurdaino, erreferentzia nagusia. Piarres Xarriton

Gelditu ginen, prestuki, azken **akitaniarrak** oro bezala, Galiarrei loturik eta, geroztik, erlijioaren eta politikaren arteko zalantzek burtzoraturik. Piarres Xarriton

Baina, halako aldi batez, **Akitaniar** idazle xorrotx batek idatzi zuen honela *toutes les querelles sont grammairiennes,* eta gainera, asko zekien politika gatazkez hitz horiek atera zituen Montaigneko jaunak. totelka mintzatzen ziren, ordea, halako moldez non ez zegoen antzematerik zer hizkuntzatan ari ziren, ingelesen hizkuntzan, **akitaniarrienean**, bretoienean, flandestarrenean edo koloniarrenean ari ote ziren, edo eta, batzuek, eta ez gutxik, esaten zutenaren arabera, portugaldarrenean. Piarres Xarriton

---

akitaniera *iz* akitaniarren hizkuntza.

Hizkuntzalari horien artean, adostasuna dago **akitaniera** eta euskara ahaideak zirela errateko, baita **akitaniera** euskara zaharra zela. Herria

Baditugu lau iturri **akitaniera** eta mintzo hori zuten akitaniarrak ikertzeko: leku izenak, idazle klasikoak (greko eta erromatarrak), harrizko estela idatziak, eta oraingo mintzaira bat: gaskoia, okzitaniar mintzairen taldean sartzen dutena. Herria

Akitanieraren adibideak argi uzten du, euskarak orain baino eremu zabalagoa zuela, eta euskararen etsai agertzen diren (edo ziren), baiones edo angeluar garaikide gaskoi batzuk, erromatartuak izan ziren Akitaniako euskaldunen ondokoak direla. Herria

---

akitgarri ik **akigarri**.

---

akitika *adlag* jauzika.

Denbora nolabait geldiarazi nahi eta lokarria sendotzea erabaki geninan arratsalde baten eromenean, harresien ertzetik **akitika**, odolari odol emanda. Javi Cillero

---

akitu, aki(tu), akitzen **1** da/du *ad* nekatu; erabat nekatu.

Ageri din ez dela lanean **akitzen** ! Itxaro Borda

Sekula ez zara beraz bidegabe izateaz **akituko** ? Jon Muñoz

Horregatik, eliza haren ardura zuen apaizak, Frantzisko gehiegizko nekeaz **akitua** ikusiz, errukiturik, egunero janari bereziren bat ematen hasi zitzaion, ez aparteko janaririk, bera ere pobrea baitzen. Askoren artean

Gazteak ere nekatzen dira eta **akitzen** , sasoitsuenak ere ahuldu eta erortzen. Elizen arteko biblia

Bai hala xira, sortetxean berean nehork onartzen ez duen ama familiako **akitua** . Itxaro Borda

Aski **akitua** naiz hor berean eta berehala bizkar zakua pausatzeko. Piarres Aintziart

Mendi soil batean bakarrik, edatekorik gabe, lurrean etzan zen **akiturik** . Askoren artean

Erdi lotan zegoen ordurako etzan-aulki batean, nekeak **akiturik** . Josu Zabaleta

Lucy goiko solairura ohera daramadanean, ohartzen naiz **akituegi** nagoela bigarren gau batez lerroan besteekin berandu arte geratzeko, besteekin batera baso ardoa baso ardoaren ostean klikatzen. Oskar Arana

Gibelerako bidea Elur-ek gau hartan berean egin zuen **akitu** gabe eta zaldi zaluenak baino anitzez lasterrago. Michel Oronoz

Emakumeak negarra utzi eta dantzan; gizonak eseri eta negarrez; umeak dantzan, emakumeak barrez, umeak negarrez, harik eta den-denak, **akituta** eta leher gaizto eginda, Soilgunean etzaten ziren arte, bustita eta arnasa iritsi ezinik. Anton Garikano

Zapategian, **akitzeraino** egiten zuen lan Tomasen esku latzaren manupean. Aingeru Epaltza

Postuen arteko bideetan aurrera ibiltzen zen, andre saltzaileen buruek arreta hartzen ziotela; gazteak, ilea sare batean bildurik, **akituak** ageri ziren jadanik, beren bizimodu latza zela eta. Karlos Zabala

2 (era burutua izenondo gisa)

Alberte izenari ihardesten zuen andere **akitu** batek errepikatzen zuen, etsia: [...].Ospitale guztiei bezala hildako usaina zerion ospitale hartako ohean, sufritzen, gorpu **akitua** , adore guztia galdua, Herio bere bila astiro zetorrela jakinda. Itxaro Borda

Langile **akituari** billetea erakutsi zion, eta honek arkatzaz kuxetaren zenbakia gurutze grisez markatu zuen. Itxaro Borda

Del Vallek sorbaldak goititu eta hasperen **akitua** egin zuen: zer axola zion horrek, azken batean? Alberto Ladron Arana

Berak baina, irribarre **akitua** ahoan, hori konpontzea gizonen esku uzten duela edo antzeko zerbait esan du. Urtzi Urrutikoetxea

Iemstxikei agindua eman eta berehala abiatu ziren berlinaren zaldi **akituen** ondotik. Karlos Zabala

3 bukatu, agortu.

Honekin batera igortzen dizut atzo arratsaldean **akitu** nuen lantxo hau, dokumentu gisa atxikia, zure interesekoa izan daitekeelakoan. Pello Salaburu

Baina, zalantzarik gabe, **akituagoa** zeukan kirofanoko unea baino lehenagoko bizimoduan ezagututako Abiada Handiko Bizimoduak. Hasier Etxeberria

Indarrak **akitzen** ari zaizkiela ikustean, denak, libre nahiz esklabo, galtzear daudela. Elizen arteko biblia

Gauza asko sor ditzakeen gizartea lortu dugu, baina barnetik itzalia eta **akitua** dagoena, orainari atxikiegia. Patxi Zubizarreta

Garai haietan, lana **akitutakoan** , hiriko azken ostatutzarrei itxiera ematen genien, goizaldeko ordu tikietan. Aingeru Epaltza

Eta istorio puta hau horrela **akitzen** balitz, gaitz erdi. Aingeru Epaltza

Zigarroa **akiturik** , apal liburu gabe baten gaineko bideoak miratzeari lotu nintzaion. Aingeru Epaltza

Baina haizeak, euriak eta elurrak, hormak eta beroak, gain hartan izigarriak baitira eta ez baitute, ez egunaz, ez gauaz, barkatzen, **akitu** eta higatu ziren kapera horren teilatu-murruak. Michel Oronoz

Haurtxoa ahulduz eta **akituz** zihoan, eta harekin batera amona errukarria hiltzen zihoan. Askoren artean

Klixeak edo egungo jakituriaren zabortegiak gainez egiteraino betetzen dituzten esaldi **akitu** eta bigarren eskuko ideia horiek oro. Oskar Arana

Hala biz; entseia zaitez nire kuraia **akitzera** , bai baitakiket bederen nire asturua erabakitzera zu nola behartu; eta menturaz, egunen batean, zuzen eta bidezkoago izanen zara nirekin. Jon Muñoz

Horretara eramaten gaituzte nazioartekotasunaren izenean, Ceutan hasi eta Panticosan bukatzen den nazioartekotasun nazional horren izenean, gaztelaniarekin hasi eta espainolarekin **akitzen** den hizkuntza-nazioartekotasun horren alde egiten dutenek. Pello Salaburu

"Tierra Santa" entzuten egon beharrean honaino iritsi baldin bazara, zaude lasai, berehala **akituko** baitut kontu hau. Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akitu arte (8); **akitu da** (3); **akitu egin** (3); **akitu eta** (5); **akitu gabe** (7); **akitu nuen** (3); **akitu zen** (4); **akitu zuen** (3); **akitua dago** (4); **akitua zegoen** (6); **akitua zela** (3); **akitua zen** (7); **akitua zirudien** (3); **akiturik eta** (4); **akiturik zegoen** (4); **akituta bere** (4); **akituta bere buruaz** (4); **akituta nago** (3); **akituta nengoen** (3); **aski akitua** (3); **baino lehenago akituko** (3); **bat akitua** (3); **bat akiturik** (3); **erabat akiturik** (3); **eta akitu** (4); **eta akitua** (11); **eta akiturik** (5); **eta akituta** (4); **jazarpenak akituta** (5); **jazarpenak akituta bere** (4)

---

akitze **1** *iz* nekatze; erabat nekatzea.

Matias-ek zaldia buztanetik atxikitzen zuen, ez sobera **akitzea** gatik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mirakulu izanen da hatzemaiten badu zerua.; eta heltzen bada ere, helduko da **akitzearen** bortxaz, Jainkoak daki nola. Xipri Arbelbide

Azkarra eta kolpekoa da Vicente, baina espero dut ni baino lehenago **akitzea** . Berria - Kirola

2 *iz* bukatzea, agortzea.

Lanean sobera **akitzearekin** berdin, edo besta eginik izariz kanpo, edo griña pisu zerbaiten gatik, ero aroa bat-batean kanbiatzen delarik, edo sudur-zintzurrak hartuak izanez, edo nik dakita oraino zergatik? Herria

Kirioak lehertu aginean baitzituen, sinesmena ahitzear zuen, **akitzear** kemena. Patxi Zubizarreta

Jaz eta horietan bezala, herrixka bat bezala bada parkerat sartze hortan, jatetxeño batekin, saltegi bat, landare batzu erosten ahal, pausagune bat bestalde hatsaren hartzeko **akitzearekin** . Herria

Arratsaldez, eskolak **akitzean** , "Lux-eko" gure partidetan, oren bat aski zuen zazpi egun iraun behar zigun aste-saria sakelaratzeko. Aingeru Epaltza

---

akizetar *izlag* Akizekoa, Akizeri dagokiona, Akizeko biztanlea.

Geroago Compiègne-n jakin nuen **Akizetar** gazte xoro baten etxean gestapoak letra bat aurkitu zuela, bikario jenerala zer afera larrian sartua zen frogatzen zuena. Marzel Etxehandi

---

aklaratu, aklara(tu), aklaratzen **1** du *ad* arropaz mintzatuz, uretan pasatu.

Urez betetzen zuen lehenengo, Lagarto ezkatak bota eta bueltaka-bueltaka ibiltzen zen gero, eta handik harrira ateratzen zuen arropa, azkenik, **aklaratzeko** . Ana Urkiza

2 da *ad* jabetu, gauzak argi ikusi.

Bertatik deitu zion aitari, baina ez dut uste hura asko **aklaratu** zenik. Pako Aristi

Hizketan jardun zidaten, baina esna ez banintzen ezertaz **aklaratzen** , pentsa erdi lo. Joxean Sagaztizabal

Ea **aklaratzen** zareten Euskal Herrian. Harkaitz Cano

Ea **aklaratzen** zareten, hermano. Harkaitz Cano

Hi, isilik atzealde horretan, bestela ez gaituk **aklaratuko** ! Pako Aristi

---

aklimatatu, aklimata(tu), aklimatatzen *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi)* **1** da *ad* ohikoak ez diren inguruneko baldintzetara egokitu. ik **moldatu**; **egokitu**.

Bertan, denbora duzuenean, poliki-poliki **aklimatatu** nahian ari naizen zenbait zuhaitz exotiko daude. ETC-literatura, saiakera

Eguerdi-ondoan, Horquetaraino eguzki galda zuriaren pean laguntzen ziolarik, igualeko sentitu zen besamotza galderak eginez, ea zer probabilitate ote zegoen kañaren legamia laranja-zukutara **aklimatatzeko** ; ea zenbat denboran **aklimatatuko** ote zen, eta zenbateko ehunekoan gutxienez... ETC-literatura, saiakera

Baina ez dute zalantzarik edukiko txori bat jateko, baldin eta **aklimatatzeko** saioan hiltzen bada. ETC-literatura, saiakera

Venustiano arina da pisuz eta eutsiko diola dirudi, ongi **aklimatatuta** dago gainera, bertakoa delako. ETC-literatura, saiakera

Tibeteko eguraldi txarrak tarte nahikorik eman zigun alturan **aklimatatzeko** eta aurreko egunetan haizeak bortizki jo bazuen ere, goiko kanpamenduetara abiatu ginen, urriaren 5ean klimatologia eztitu eta tontorrera heltzeko okasioa luzatuko zigulakoan. ETC-literatura, saiakera

Gauza jakina da honelako pertsonaia-klasea gaizki **aklimatatzen** dela Frantzian. ETC-literatura, saiakera

Ez geunden guztiz **aklimatatuta** eta, hotz handia egiteaz gain, haizeak gogotik jotzen zuen. ETC-prentsa

Martxoaren 12a eta 26a bitartean, Nepalen **aklimatatuko** dira, eta 29an kanpaleku nagusira abiatuko. ETC-prentsa

Lafaillek gailurrerainoko bidea egin zuen gero, baina Morok beherako bidea hartu zuen, behar moduan **aklimatatuta** ez zegoela-eta. ETC-prentsa

Dagoeneko **aklimatatu** gara Euskal Herrian bizitzeko erritmora. ETC-prentsa

Lhotsera joan aurretik, udazkenean Shisha Pangman izan ziren, **aklimatatzen** . ETC-prentsa

Espedizioa hasi aurretik garbi zituzten ideiak: altuera pixkanaka irabazi, **aklimatatzeko** ; ondoren, era alpinoan horman sartu, eta ahalik eta azkarrena gailurreko saioa egin. ETC-prentsa

Herrialde berri batera joandakoan, **aklimatatu** beharra daukazu, eta ordu aldaketak ere erasaten du. ETC-prentsa

Landareak eguzki- eta itzal-inguruneetara **aklimatatzen** eta moldatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bertan erasoa prestatzeko eta iritsi berria zen Indiako Armadako infanteria **aklimatatzeko** egoera hobea zen. ETC-entziklopedia

Aklimatatzeko ibilbide egokia da Namche Bazaarretik Everest View Hotelera igotzea, 3.800 metrotako garaieran baitago Everesten ikuspegi itzela erakusten duen hotel berezi hau. ETC-entziklopedia

2 (era burutua izenondo gisa)

1995ean Taberna 94 inauguratu zen, eguneko menua zerbitzatzen delarik eta terraza **aklimatatuan** mokadutxo menua eta menu berezia. ETC-entziklopedia

---

aklimatatze *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* ohikoak ez diren inguruneko baldintzetara egokitzea. ik **moldatze**; **egokitze**.

Arrarotasuna bai, baina berritasuna, urduritasuna... dena nahasia zen; eta nik hala-nola **aklimatatzea** lortzen nuen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondorengo egunetan altuerara **aklimatatzeari** ekingo diote hiru euskal mendizaleek, gailurreko ahaleginari ekin aurretik. ETC-prentsa

Aklimatatze aldetik arazoak sortzen ditu. ETC-prentsa

Aklimatatzea garrantzitsua dela erran ohi da, eta anitzetan diru galera dela ere bai. ETC-prentsa

Horretarako **aklimatatze** lana beharrezkoa izango du tolosarrak, eta haren espedizioa osatzen duten Asier Izagirre, Ferran Latorre eta Nacho Orvizek. ETC-prentsa

Eta gu alderantzizko bidetik gindoazen, guk ikusten genuen **aklimatatze** horrek estatua eta Euskal Herriaren arteko harremanen lehengoan segitzea ekarriko zuela, eta horrek guretzat ez zuen soberaniaren aldera aldaketa kualitatiborik esan nahi, aurrerapausorik. ETC-prentsa

Aklimatatze prozesu bat besterik ez da haientzat. ETC-prentsa

---

aklimatazio *(corpusean ez dago; ETCn **103** agerraldi) iz* ohikoak ez diren inguruneko baldintzetara egokitzea.

Ez zuen unerik galdu nahi neska bere besoetan izan gabe, baina neskak lorea erakutsi nahi zion, eta " **Aklimatazio** Lorategia" izeneko leku batera joan ziren. ETC-literatura, saiakera

Nyalamen, **aklimatazioaren** prozesuari dedikaturikoekin batera eman beharreko orduak eztitzeko, ingurutik gabiltza alderrai, budisten monasterioak ikusten eta jendearekiko harremanak, hala edo nola, estutzen, estutzerik baldin badago. ETC-literatura, saiakera

Behin Salt Lake Cityra iritsita -astelehenean ailegatu zen- ordutegi aldaketara moldatu, **aklimatazio** egokia egin eta gorputza egoera aproposenean jartzea espero dut. ETC-prentsa

Uztailean Gashebrum I eta II, bi zortzimilako horiek igo ondoren, altuerako **aklimatazio** askoz hobea zuen Oiarzabalek Ibañezek baino, eta abagadunea izan duen orduko, bere erronka ase du. ETC-prentsa

Oinarrizko kanpamendura iritsi berriak dirudite eta altuerarekin **aklimatazio** arazoak dituzte. ETC-prentsa

Aklimatazioa burutzeko prozesuan, bigarren kanpalekura igo ziren atzo Lasa eta Kortabitarte. ETC-prentsa

Garaiera handietara joan aurretik hipoxiako estimulu batzuk jasoz gero **aklimatazioa** azkarragoa da. ETC-prentsa

Berriki euren espedizioak amaitu dituzten mendizaleak bildu ditu Bogomolovek, **aklimatazio** arazorik izan ez dezaten. ETC-prentsa

Ikergaiak estomen funtzioak, argi urdinarekiko erantzunen sentikortasun-transdukzioa eta labore-uzta handitzearekin lotutako estoma- **aklimatazioen** ikerketa izan dira, besteak beste. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aste bateko **aklimatazio** epe baten ondoren, jatorri komertzialeko 175 magurio aukeratu ziren talde esperimental bakoitzerako, hauek kontrol taldea, CdL taldea (0,25ppm kadmiora esposatuak) eta CdH taldea (1ppm kadmiora esposatuak) izanik. ETC-zientzia, zuzenbidea

XABIER.- **Aklimatazioa** ! A zer kopeta duzuen! Besteok oporrak bukatu, eta lehenengo egunetik jo eta ke aritu behar izaten dugu. ETC-telebista

Ondo prestatuta ere, **aklimatazio** aldiaren ostean bi-hiru egun behar dira igoera burutzeko; gauak kanpaina-dendetan ematen dira eta egokiena udan joatea da. ETC-entziklopedia

Kultibatutako landareek negutegietan **aklimatazio** bat jasaten dute ondoren landara transferituak izateko, bigarren **aklimatazio** bat lortzeko. ETC-entziklopedia

---

akne *iz* azaleko sebo guruinen hantura, gehien bat aurpegian, bularrean edo sorbaldan agertzen dena, eta batez ere nerabezaroan gertatzen dena.

Baina fenomeno hori, **aknea** bezala, pasatu egin zen. Berria - Kultura

Ledesmak lokatz sendagarrietatik eta Habanako ikerketa-zentroan ekoitzitako produktuen berri eman zuen: adibidez, aurpegiko zimurrak kentzeko kremak emaitza onak eman ditu hamar kasutatik bederatzitan; bestetik, **aknea** tratatzen duenak ere porrot egin du soilik kasuen %5etan. Berria - Gaiak

Dermatologoek, baina, esan zuten horiek berriketak zirela, eta pikorrek gaztaroko **aknearekin** zutela zerikusia, hormonekin eta gantz kontzentrazioekin, inola ere ez masturbazioarekin. Luis Elberdin

Hormonei eragiten die gaiak, eta, horregatik, **aknearen** kontra zein antisorgailu gisa erabil daiteke. Berria - Gaiak

-Egon isilik, **akne** -zorro tentel hori! -hark ere eztenkadaz erantzun nahi izan zidan. Jon Muñoz

---

aknedun *izond* aknea duena.

Elkarrizketa lagin xume honetatik igarri ahal dugunez, dohain eta bertute handien jabe ziren gure alienigena **aknedun** haiek: ninfomanoak, txoriburuak, auzokalteak... Patxi Iturritegi

---

akodiña *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* prestaketa.

Antso Handia pastoralaren plantatzeko xedean egin ahalak oro egiten ari direnen artean, nolaz ez aipa ere, isil-isilik, honenbeste bat antolamentü **akodiñetan** ari direnak? ETC-prentsa

---

akojonante *izond adkor* erabat txundigarria.

Tipo hori **akojonantea** iruditzen jatan! Unai Iturriaga

-Ez neuan esan Pennac **akojonantea** zuala? Unai Iturriaga

- **Akojonantea**. Unai Iturriaga

---

akojonatu, akojona(tu), akojonatzen da/du *ad adkor* erabat beldurtu.

-Ba, egiazko egia, joder: **akojonatu** egin zinetela esan zioat. Fernando Morillo

Jokaera horrek **akojonatu** egiten du jendea eta kopiatzeko asmoz etorri direnak beharbada ez dira ausartuko. Jon Arretxe

-Urduri samar eta nahiko **akojonatuta**. Rafa Egiguren

"Dena egongo da ondo", bai, baina zu ere, disimulatu arren, guztiz **akojonatuta** zaude. Sonia Gonzalez

---

akojono *iz adkor* erabateko beldurra.

- **Akojonoa**... Jon Alonso

---

akolito *iz* meza-laguntzailea.

Katixima-irakasle herrian, eta **akolito**, eta Begoñako Amatxoren gurtzaile. Inazio Mujika Iraola

Fermin **akolitoa** da parrokian, eta berak jotzen ditu bertan kanpaiak. Xabier Mendiguren Elizegi

Alboetako dominetan **akolitoak** daude, S. Marçal, esatera, suteetatik babesten duena, S. Jon Alonso

Zenobitak, bizi arteko bikarioak, kaperauak, mudjoak, irakurleak, nobiziosak, bikarioak, pastoreak, rabbiak, ulemak, lamak, sakristauak, eliz-atezainak, derbixeak, irakurleak, eliz-zainak, kardinalak, prioremeak, apezpiku-laguntzaileak, **akolitoak**, erretoreak, apaizak, sufiak, muftiak, eta pum-pumak. Xabier Olarra

Aitak ez zintuen ezagutu **akolito**-ximonero. Arantxa Iturbe

---

akoltxatu *izond* bigungarriduna.

Ohiko bata **akoltxatuaren** ordez kimono mahuka-zabala zuen jantzita. Patxi Iturritegi

Narru **akoltxatuaren** kontra zartakoek sortutako hotsa sikuegia zen gimnasioaren durunda algaratsuaren gainetik nabarmendu zedin. Josu Landa

Burko **akoltxatuaren** zirrikituetatik ezpainak gailentzen zitzaizkion nabarmen, eta hortz-haginetako babesgailua zerabilen kanpora eta barrura. Josu Landa

Bere burua imajinatzen zuen Matiasek hilobi barruan, hilkutxa **akoltxatu** batean, gustura, gominolak jaten. Unai Elorriaga

Zilar koloreko bata bigun, **akoltxatu** bat soinean zuela. Matías Múgica

Londresko erdigunean, zaratarik ez ateratzeko tekla oihalez **akoltxatuak** zituzten idazmakina gogaikarri haietan lanean ari ziren Churchill eta bere idazkarien lurpeko gotorlekua txikitzea? Harkaitz Cano

---

akomeamendu *ipar iz* konponketa, egokitzapena.

Joanden ekainean, Europa batuan partzuer diren gobernu guzien artean **akomeamendu** bat finkatu izan zen, arras nekez egia erran, Europa batu hori lege-nagusi batez jaunzteko, geroari buruz ez dela beste biderik. Herria

Alderdi jeltzaleak **akomeamendu** bat egiten ahalko ote du sozialixtekin, luzaz eskuz-esku ibiliak-eta, ala ezin gainditua da orai bien arteko makurra? Herria

Diote denen artean **akomeamendu** batzu eginez gauzak hobeki joan litazkeela Erakusterat eman du **akomeamendu** batetarat laster heldu behar litazkeela. Herria

Deputatuen artean, ez du gehiengorik, nun ez duen **akomeamendu** zerbait egiten ezkerraldekoekin. Herria

Haatik, **akomeamendu** xuhur batentzat ere, langile sindikatak ez dira denak ados. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akomeamendu bat** (4)

---

akomeatu, akomea(tu), akomeatzen da/du *ad* konpondu, egokitu, adostu.

Hemeretzigarren mendeko *Eskualduna*-tik egundaino, Iparraldeko kazetaritza irakurleentzat egina izan da; idatzitako euskara ongi **akomeatu** du, jendeak irakur eta konpreni dezan. Janbattitt Dirassar

Hemeretzigarren mendeko Eskualduna-tik egundaino, Iparraldeko kazetaritza irakurleentzat egina izan da; idatzitako euskara ongi **akomeatu** du, jendeak irakur eta konpreni dezan. Janbattitt Dirassar

Jauffretekin ere ongi **akomeatu** zela bederatzi urtez, ezin uka. Xipri Arbelbide

Zuzendari literarioak esan zuen, Ongi da, eta espero izateko ziren hitzak esatera **akomeatu** zen. Piarres Xarriton

Batek prezioa goititu nahiz, besteak apalarazi, ez zen errex **akomeatzea** edo adostea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bere biziarekin **akomeatu** dira. Piarres Aintziart

Fedeaz duda izpirik, sofritzea sinestea baitzen eta bat bestea: **akomeatzen** zitzaizkidan biak xarmanki. Piarres Aintziart

Aurten, RPR eta UDF alderdietakoak ezin **akomeatuz** ari dira, zerrenda bat bakarra ala bi presentatuko dituzten ezin trenkatuz. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akomeatzen ahal** (3); **ezin akomeatuz** (7)

akometatu, akome(ta), akometatzen **1** da/du *ad* eraso, oldartu.

-Tigreak **akometatu** nau eta atzaparkatu nau! -erran zuen Mattinek. Joan Mari Irigoien

Alessandroren gidariak aditzerat emaiten baitzigun ezen bazirudiela egun batzuk lehenago bidelapurrek noble batzuen kotxea **akometatu** zutela, eta noble haietarik bat hil zutela ez dakit non. Joan Mari Irigoien

Harresiak zuzen **akometatzea** bertze biderik ez zuten. Aingeru Epaltza

2 akomodatu, egokitu.

Hura aberats alaba zen eta ni, aldiz, emaginaren alaba soila, baina aski ongi **akometatzen** ginen. Elena Touyarou

Sekulan, sekulan ez da gauzatuko Arbelbideren egitasmoa."Bainan gaua pasatu eta apezpikuaren hasarrea eztitu zen eta azkenean, denak **akometatu** ziren, apezpiku, fraile eta Hazparneko misionest". Xipri Arbelbide

---

akomodatu, akomoda(tu), akomodatzen **1** da *ad* egokitu.

Behar zinen **akomodatu** profesoreekin, atxeman behar zinituen profesorak. Menane Oxandabaratz

Gero "kristau zahar" haietako batzuk **akomodatu** ziren, beste batzuek basoetara ihes egin zuten. Pablo Sastre

Arras ongi **akomodatzen** ginen eta konfiantza osoa zeukan ni baitan. Daniel Landart

2 (era burutua izenondo gisa)

Egunkari nagusienak, *El Universal eta El Nacional, 18* bere aurkako oligarkiaren eskuetan daude eta ez dute bere jestioaren eta lorpenen berririk ematen; telebista kate gehienak ere aurka ditu, baina bera jendearen, batez ere jende pobrearen bihotzera iritsi da, eta ezkerreko jende **akomodatuagoaren** burmuinera. Pako Aristi

---

akonfesional **1** *izond* estatuez mintzatuz, erlijiorik onartzen ez duena ofizialtzat.

Nahiz eta bere burua **akonfesionaltzat** duen erakundetik etorri, San Ignazioren gogo jardunetako hizkuntza dirudi lehen paragrafotik bertatik: [...]. Joseba Zulaika

"Irekia, laikoa, **akonfesionala** eta autonomoa" izango dela nabarmendu du, eta helburu nagusia "istiluak etikoki lantzen ikasteko bideak sustatzea" izango du. Berria - Euskal Herria

Nafarroako sozialisten ustez, UPN eta CDN alderdiek osatutako Gobernua herritarren kontzientzientzian "eragiten" saiatzen da, "muturreko jarrera erlijiosoak" sustatuz: "Exekutiboaren jarrera estatu laiko eta **akonfesional** batean tokirik ez duten sinesmenetan oinarritzen da". Berria - Euskal Herria

Lehengoa Jainkoan eta kristautasunean oinarritzen bazen, oraingoa **akonfesionala** aldarrikatzen da. Joseba Zulaika

2 ***estatu akonfesional*** *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Estatu ez-konfesionala edo **estatu akonfesionala** erlijio jakin batekin bat egiten ez duena eta ofizial gisa onartzen ez duena, nahiz eta zenbait erlijio-erakunderekin akordioak izan ditzakeen (lankidetzakoak edo laguntza ekonomikokoak, nagusiki). **Estatu akonfesionala** ez da estatu laikoa. ETC-entziklopedia

Arazo horiek guztiak lotuta daude eta **estatu akonfesional** faltsu honen ondorio dira; beraz, laikotasuna izan daiteke gizarte mugimenduen arteko elkarlana sustatzeko borroka bateratua. ETC-prentsa

Hori, baina, Zuzenbide Kanonikoaren xedea litzateke **estatu akonfesional** batena baino gehiago. ETC-prentsa

Estatu akonfesionala nahi dugu, estatua elizaren aurrean independentea dela bermatzen duena. ETC-prentsa

Espainia **estatu akonfesionala** da, diru laguntzak ematen dizkie hainbat sinesteri, baina Eliza katolikoarekin bestelako hitzarmen bat dauka, estatuen arteko konkordatua alegia. ETC-prentsa

Estatu akonfesional bat aldarrikatzen zuten liberalen eta irakasleen kontra asmahalak eta bi idatzi zituen. ETC-prentsa

Jainkoaren aginduz, Espainia bezalako **estatu akonfesional** baten erregea den Felipe VI.ak arrakasta dauka. ETC-prentsa

---

akonitina *iz* akonitoaren alkaloide aizun nagusia, guztiz toxikoa.

Ohe-mahaiaren gainean kopa bat eta Duquesnel-en **akonitina** kristalduzko flasko bat ikusten ziren. Josu Zabaleta

Bertan sartu zuen literatur itxuragabekeria hura, alegia, Barojak noski Duquesnelen **akonitina** kristalduz bere buruaz beste egin beharrean, eleberriaren protagonistak egiten duen bezala, "hogeita sei edo hogeita zortzi liburu idatzi zituela, guztiak ere asperdura transzendentalezko aharrausi moduan zabaltzen direnak, dena eskas duen mundu baten aurrean". Josu Zabaleta

---

akonito *iz Ranumculaceae* familiako belar landarea, metrotik gora hazten dena, guztiz toxikoa. ik **ira 3**.

Ira-belarra edo azeri-buztana, berriz, landare bera da, **akonito** izena ere hartzen duena. Iñaki Mendiguren

---

akonpainamendu *(ETCn **108** agerraldi, horietatik **63** azken sei urteetan)* **1** *iz* lagun egitea; laguntza.

Azkenean kontratu bat sinatu zuten, zeinaren bidez zortzi ginea jasoko baitzituen Kathleenek, lau kontzertu nagusietan **akonpainamendua** jotzen egingo zuen lanagatik. Irene Aldasoro

Healy andereñoak, ordea, adeitsu, **akonpainamendu** bat edo beste jotzea onartu zuen. Irene Aldasoro

Abeslaria eta **akonpainamendu**-jolea elkarrekin irten ziren. Irene Aldasoro

Koloreak sortzeko gaitasuna galtzeak, beraz, bere barneko "kolorearen organoa" erabili ezinik utzi zuen, eta ikuspen-**akonpainamendurik** gabe entzuten zuen orain musika; funtsezko osagarri kromatikorik gabeko musika zen hura, eta errotik pobretua. Xabier Olarra

2 ***akonpainamendua egin*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Jo zuten bigarren piezan, kasu, kontrabaxuak berak markatu zuen melodia, bateriak eta pianoak **akonpainamendua egiten** zuten bitartean. ETC-prentsa

Biniloak jogailuan jarri eta, bere kasa, maisu handiei **akonpainamendua egiten** saiatzen zen. ETC-literatura, saiakera

Motibo musikal bat nola, haren hizkuntzari, italierari, **akonpainamendua egiten** diote. ETC-literatura, saiakera

---

akonpainatu du *ad* lagun egin, lagundu.

Zeren *Arrantzalea eta Emaztea*ren ipuin hura baxua bezalakoa baitzen, doinuari goxoki **akonpainatzen** ziona, noizean behin melodian ustegabe tartekatuz. Anton Garikano

---

akonpasatu *izond* konpasaren erritmoan egina, konpasaren araberakoa.

Neskaren arnasaldi lasaiak bularraldeko argi-itzalak higitzen zituen, gora eta behera, modu **akonpasatu** batez. Anjel Lertxundi

Hala, soinu hark, areago zirudien olatuen etorrera monotonoa hondartzara, gehienetan bere pentsamenduei tarrapata **akonpasatu** eta lasaigarri bat txertatzen ziena.

Anton Garikano

Jauzi eta zaunka **akonpasatu** alaien bozkario hura. Harkaitz Cano

Oso kolpe **akonpasatuak** ziren, eta batzuetan arinagoak eta beste batzuetan motelagoak, tak... tak... edo tak-tak-tak. Unai Elorriaga

Begirada makiabelikoa, nire besoaren kontrako igurtzi axolagabea, mototsa askatzean eskainitako ilezko irribarrea eta, batez ere, hanken ixte-irekitze **akonpasatuak** jolas haren aurkezpena baino ez ziren izan.Autoen gurpilek, asfalto bustiaren gainean, egiten zuten zarata **akonpasatuak** soinu banda negargarria jartzen zion goiz zikin horri. Eider Rodriguez

Planta itxuros oa zuen zientzialari edadetuak eta ezpainak oso modu **akonpasatu** eta birtuosoan mugitzen zituen. Unai Elorriaga

---

akonpasatuki *adlag* era akonpasatuan.

Mutilaren eskumuturrak, pultsua hartzen ari balitz bezala, hatz finez laztantzen hasi eta fermuki helduko zizkion gero, gerria **akonpasatuki** dantzatzen jarraitzen zuen bitartean, mutilaren besoak erabat mugiezin eta Martaren menera. Harkaitz Cano

---

akonplejatu ik **akonplexatu**.

---

akonplexatu, akonplexa(tu), akonplexatzen *(orobat **akonplejatu**)* **1** du *ad izond* konplexuren bat eragin.

Eredu hori jarririk, gainera, hainbat eta hainbat euskal hiztun ez-zuzen baina bai egoki asko **akonplexatzea** lortu dugu, bai horixe, galdetu bestela Deba Garaian eta inguruan. Joxerra Garzia

2 (era burutua izenondo gisa)

- **Akonplexatu** bat, esan nahi duzu. Karlos Linazasoro

---

akoplagailu *izond* akoplatzeko erabiltzen den gailua.

Baditen **akoplagailu** bana, ezta? Patxi Iturritegi

---

akoplamendu *(corpusean ez dago; ETCn **503** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian, mekanika eta elektrizitatea arloetako adieretarako soilik agertzen da) iz* bi gauza elkarrekin modu egokian lotzea. ik **egokitzapen**; **moldatze**; **giltzadura**.

Benzonen arabera, parte-hartzaileak euren hotsak eta mugimenduak besteenekin sinkronizatzen dituztenean sortzen da '**akoplamendua**'; antzeko emozio-egoeretan sartzen dira, eta ondorioz, baten eta bestearen nerbio-egoerak sintonizatu egiten dira. ETC-literatura, saiakera

Akoplamendua tristea izan da. ETC-literatura, saiakera

Eukaliptodiak atzean gelditu dozak, ibar zabalean baserri zuriak eta landa berdeak agertu dozak, eta abadea prekauzinoren batek jo jok, zorionez, **akoplamenduzko** itxura orotatik jaregiteko. ETC-literatura, saiakera

Kultura batetik bestera egindako bidaian ez da harritzeko jatorrizko hizkuntzaren hainbat gorabehera eta xehetasun bidean galdu izana, ez da harritzeko etxeko hizkuntza bihurritu behar izana ere bi hizkuntzen arteko **akoplamendua** lortzeko, puzzle erraldoi bateko hainbat fitxa ondo akoplatzen ez diren bezala gaizki moztuta daudelako, edo gastatuta, edo lizunak hartuta, edo kolorea ahulduta. ETC-literatura, saiakera

Ingalaterrako egitura historikoak ziurtatzen omen zituen segurtasuna eta askatasuna soilik izan daitezke adaptazio eta **akoplamenduen** prozesu historiko baten ondorio, ez dena ematen borondate sortzaile arrazionalista baten diseinua aplikatuz. ETC-literatura, saiakera

Biarritzeko instalazioetan, osagai aeronautikoak ekoizten ditu eta ekipamenduak errebisatzen, baina, horrez gainera, hegazkinen fuselajeen **akoplamenduak** eta haien osagai batzuen muntadurak ere egiten ditu. ETC-prentsa

Hormonak geruza sakonetara migratzen du, horietan melanozito-estimulatzailearen (MSHaren) eta melanozitoen mintzaren arteko **akoplamendua** sortzean, melanozitoak melanina produzitzen hasten dira, azala beltzaranduz ultramoreen erasotik babesteko. ETC-prentsa

Akoplamendu horretarako, herritarren eta tokiko administrazioaren erlaziozko topaketa horretarako, baldintza batzuk -fisikoak eta jokaerazkoak- ezinbestekoak dira, kultura politikoari dagokionez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Neurketa-buru zilindriko bat dute, erabat lehorra, **akoplamendu** magnetiko batez eta engranaje bidezko kontagailu batez hornitua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kinadaren eta jariatzearen arteko **akoplamenduaren** gertaera nagusiak adierazi dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oro har, bi uhin-mota horien arteko **akoplamendua** mekanismo konplexuen bidez lortu behar da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egungo korronte alternoko potentzia-sareak aldatzen ari dira, sorgailuen arteko **akoplamendua** DC izan dadin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haiek berak, edo beste objektu batekin duten **akoplamenduak**, deforma daitezke neurri batean. ETC-zientzia, zuzenbidea

T3 eta T4 hormonak tirosina iodatuta dauden bi molekulen **akoplamendu** oxidatiboz sortzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sexu biak elkartuz gero, **akoplamendua** anplexu lunbarrez burutzen da, arrak emea gerriaren ingurutik heltzen du aurreko hankekin, eta ez galtzarbeen ingurutik. ETC-entziklopedia

Beheko eskemak zarataren iturria (igorlea), **akoplamendu**-modu ezberdinak eta biktima (hartzailea) erakusten ditu. ETC-entziklopedia

Harilketen **akoplamendu** magnetikoa perfektutzat hartzen baldin badugu, ondorioztatzen da, tentsioen arteko erlazioa harilkatuen espiretako kopuruaren arteko erlazioarekin alderantziz proportzionala dela. ETC-entziklopedia

---

akoplatu, akopla(tu), akoplatzen **1** du *ad* osagai bat beste batekin elkartu edo ahokatu.

Soyuz-TML 4 ontzia arazo barik **akoplatu** zen atzo Euskal Herriko 07:00etan ISS Nazioarteko Espazio Estaziora, TSOUP Errusiako Espazio Hegaldien Kontrolerako Zentroak jakinarazi zuenez. Berria - Gaiak

Automatikoki **akoplatu** zen. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Jokalari berri asko daude eta pixkanaka ari dira **akoplatzen**, pixkanaka baina azkar ere bai. Berria - Kirola

Bikote beltz hura gogor ari baitzen orduantxe lanean: biak zeuden erabat biluzik, emakumezkoa ordura arte Rekexok ikusi ez zuen koltxoi moduko baten gainean luze etzanda, agertokiaren erdi-erdian, eta gizonezko beltza haren gainean ari zen perfektuki **akoplatzen** kontaktu bat lortzeko asmoz. Joxemari Iturralde

---

akoplatze osagai bat beste batekin elkartu edo ahokatzea.

Gerri-behea, aldi berean, gizatiarrago jokatuz, ahalegin neurtuan saiatzen zen **akoplatze** lanetan, baina pasiozko sukar hark hartuak zituen jada zainik txikienak ere. Karlos Linazasoro

---

akople *iz* akoplatzea.

Oso kontzertu gutxi eman dute orain arte eta hasieratik antzeman zitzaien muga hori: agertokiko antolamenduak **akopleak** sortzen zituen. Berria - Kultura

Ingelesez egin zuten emanaldi osoa, mila **akople** irribarre batez jaso zituzten, eta komunikazioaren zama ere sentitu zuten. Une pare batetan kantaria pianoarekin geratu zen aurrez aurre, amodiozko balada ederrak egitearren: *My funny Valentine* (**akopleak** agertu ziren azken esaldian, tamalez) eta *In my solitude* (bikaina). Berria - Kultura

---

akorazatu[1] *iz* gerra itsasontzia handia eta blindatua.

Straniakek, Führerraren agintari militarren aitzinean, Prinz Eugen **akorazatuaren** posizioaren koordenada sekretuak aurkitu zituen, mapa eta pendulua beste laguntzarik gabe. Alberto Ladron Arana

---

akorazatu[2] *izond* gotortua, blindatua.

Leiho bakarraren alboan kutxa **akorazatua** zegoen lurrean eta, haren gainean, beste altzari txiki bat, kanpoan zuen termometro txiki batengatik puruetarako behar zuena, sarraila eta guzti, baina tamaina egokia ei zeukalako edariak gordetzeko erabiltzen zuen Pedriñok. Josu Landa

---

akordaldi *iz* oraitaldia, oroitzaldia.

Profesionalki jarraitzen duenari ez beharbada, baina kulturatik aparteko beste lanbide batean dabilenari honelako **akordaldi** batzuk ondo etortzen zaizkio. Berria - Kultura

---

akordarazi, akordaraz(i), akordarazten du *ad* akordatzera behartu.

Ostegun gauean, ate joka leun batek **akordarazi** zuen; badaezpada ere, giltzaz ixten baitzuen beti atea. Juan Garzia

Lazaro deitu Pasio-igande honek bazuen beste esaldi bat ere, orduko elizako irudiak estaltzeko ohiturarekin oso ongi **akordarazten** gaituena. Pello Zabala

Galderaz abiatu, aurrekoa bezala, eta hortxe-hortxe, hozten hasi eta negua zabaltzear denean, garientzat hotz dagoeneko, herenegungo San Klementerekin **akordarazi** zigutenez; eta bisigutarako goiz, hortxe-hortxe dabileneko mugarria, biharko santa honen eguna. Pello Zabala

Negu bigunegiak, uda gogorregia apuntatu zuenak, hori **akordarazi** nahi zigun. Pello Zabala

Egunsentia baino lehen **akordarazteko** enkargatu hidan. Juan Garzia

---

akordatu[1], akorda(tu), akordatzen **1** da *ad* gogoratu.

Baina zer uste duk **akordatu** zaidala bizitza guztian belauneko mina sentitzen nuen bakoitzean, gerraren garratza ala amodioaren gozoa? Pako Aristi

Akordatu zen, gogoeta luzea egin ondoren, bezperan mirari bat bizi izan zuela, miraria. Matías Mujika

Gora-behera zoro horietan nenbilen, Jannis Kounellis artista greziar maiteak, Erromako arte galeria bat, 1969an, zaldi ukuilu nola bihurtu zuen **akordatu** nintzenean. Hasier Etxeberria

Orduan **akordatu** zen nola beti esaten zion neskari egunen batean ilea moztu behar zuela, Ferminen atzamarrentzako lurreratze-pista sortu, bere mingain hezearentzako izotz-palazioa. gaur goizean **akordatu** nauk jatetxe dotore bat jarri zuela hor San Frantziskotik gertu, zubiaren bestaldean, Sausaliton. Jasone Osoro

Ondoren, Izarori deitzea pentsatu nuen Oskar utzi nuela esateko, baina eskolan zegoela **akordatu** nintzen eta ideia bertan behera utzi nuen. Eider Rodriguez

Egin ditu egin beharreko tratuak, eta etxerakoan, **akordatu** da umeari opari bat eraman behar diola. Andoni Egaña

Orduantxe **akordatu** aharia Nemesiori ere. Pako Aristi

Hori utzi, ahaztu, oso ongi jakinda mundua zer den gaur eta munduan non zauden zu -**akordatua** baitzaude zenbat kilometrora dagoen Madril eta zenbatera Paris. Joxe Azurmendi

Akordatu zitzaion, usain heze hura, aitaren usain heze hura, basoarena izan zitekeela. Jon Maia

Akordatuko zaio, morroi barik etorria bada menditarte honetara. Koldo Izagirre

2 (objektua –z deklinabide atzizkiarekin)

Gerardoz **akordatu** zen orduan. Xabier Montoia

Dendariaz **akordatu** zen gero eta bere Pietateaz geroago. Unai Iturriaga

Zalantzan izan zen, ireki edo ez, baina amaz **akordatu** zen eta amari ez zizkion sekula etxeko ateak itxiko. Jasone Osoro

Segur aski ez zara **akordatu** ere egingo senarra itsasoak irentsi zion emakume gazte hartaz. Arantxa Iturbe

Istriborko haize ederra genuela itsasoratu ginen, eta puska batean bizi-bizi joan ginen, arriskuaz **akordatu** ere gabe, ez baikenuen sumatzen arriskuaren arrastorik batere. Koro Navarro

Zelan ez nintzen **akordatuko** Alipasoloko kanpaina-mezan ezagutu nuen David haren izenaz? Edorta Jimenez

Harrezkero, ordea, ez ginen batere **akordatu** izango liburuaz, zeren oroipenaren estreinako momentuan arrotz egingo baitzitzaigun haren agerpena. Pedro Alberdi

Osaba Gilitoren esaldiaren estrapolazioaz **akordatu** zen berehala, eskuak burura eramanez: [...]. Karlos Linazasoro

Akaso ez duk pasatakoaz **akordatuko** eta ez zioat ezer esan beharrik izango, esaten nioan neure buruari. Xabier Etxabe

Lehenago esan dudan eran, sarritan **akordatu** nintzen ondoko urteetan Doualako gau sargori hartan entzundakoaz. Xabier Montoia

Nolanahi ere, horrela, puntuan **akordatutakoak** dira horiek... izango da, noski, besterik ere. Pello Zabala

Bere kontraesanaz **akordaturik** bezala idazten du berak behin, Cejador-ekin polemikan: [...]. Joxe Azurmendi

Begiak berriro itxi eta, une batez, Leitzaran aldera kanpatzera joan ginenekoaz **akordatu** naiz. Iban Zaldua

-Hara, gutaz **akordatu** dela alkatea -esan zuen sarjentuak pozaren pozez, botilak ikusi eta begiak izartuta. Felipe Juaristi

Gogoratu nahian nabil, baina ezin **akordatu**, nor mintzatu zen lehengoan elipsiak literaturan duen edertasunaz. Berria - Kultura

3 (objektua –ekin atzizkiarekin)

Zurekin **akordatu** nintzen. Arantxa Iturbe

Ez zela gauean bere maitearekin **akordatu**, eta begiak zabaldu eta ingurura begiratu zuenean munduak jiraka jarraitzen zuela beti bezala. Bernardo Atxaga

Aupa baserritar eta ortuzaleok, **akordatu** Medinekin babak loretan ikusi nahi badituzue. Pello Zabala

Goya pintorearekin **akordatu** nintzen, eta, batik bat, James Ensor-ekin. Karlos Linazasoro

Egun hauetan Cannes aldetik film eta sari usainetan dabiltzan hainbatekin, **akordatu** naiz ba, nire lagunaren esanarekin, horma zahar guztiz apain bati begira eta begira, xokorik politenak eta bariatuenak erreparatu eta erreparatu, egundoko gozatua hartu dudanean. Pello Zabala

San Ferminetan dabiltzanak ez dira asko **akordatuko** eguraldiarekin. Pello Zabala

Beste poema gogoangarri harekin **akordatu** naiz hilartitzeko elurraren aipua irakurtzean: "amak berokiaren lepoa lotzen dit, ez elurra ari duelako, elurra egin dezan baizik". Harkaitz Cano

Eta biak **akordatu** ziren, norbere hitzaldiaren hasieran, Xabier Arzalluz EBBko lehendakari ohiarekin. Berria - Euskal Herria

Gehienbat gatazka honekin gehien sufritu duten alde guztiekin **akordatu** nintzen. Berria - Harian

-Berriro diot, zure emazte ohia behin baino gehiagotan **akordatuko** da zurekin. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akordatu da (9); **akordatu ere** (9); **akordatu ginen** (4); **akordatu naiz** (16); **akordatu nintzen** (20); **akordatu zara** (3); **akordatu zen** (20); **batekin akordatu** (3); **dela akordatu** (3); **ere akordatu** (4); **harekin akordatu** (3)

akordatuko da (3); **akordatuko zen** (4)

akordatzen da (8); **akordatzen dira** (5); **akordatzen ez** (10); **akordatzen gara** (3); **akordatzen haiz** (4); **akordatzen nauk** (9); **akordatzen nintzen** (3); **akordatzen zara** (6); **akordatzen zen** (3); **al haiz akordatzen** (3); **asko akordatzen naiz** (5); **ez da akordatzen** (4); **ez naiz akordatzen** (7); **ez nauk akordatzen** (4); **ez zen akordatzen** (3); **ezertaz akordatzen** (4); **ondo akordatzen** (5); **ongi akordatzen** (3)

---

akordatu[2], akorda(tu), akordatzen du *ad* hitzartu, adostu.

Georgiak eta Hego Osetiak bake ituna sinatu zuten, elkarren aurka indarra ez erabiltzea zin eginez, eta Hego Osetian bake indarrak ezartzea **akordatu** zuten, Errusiako, Georgiako eta Hego Osetiako armadek. Berria - Mundua

1992an Errusiak eta Georgiak su-etena **akordatu** zuten, bake indar mistoak ezarriz, baina orain Georgiak indar errusiarrak nazioarteko indarrez ordezkatu nahi ditu, "gatazkaren parte" direlako. Berria - Mundua

Georgiako indarrek Hego Osetiako hiriburuan hartutako postuak utzi dituzte, eta **akordatu** bezala, 500 soldadu utziko dituzte zonaldean. Berria - Mundua

Iragan asteartean Hego Osetia eta Georgiako agintariek osatzen duten Kontrolerako Komisio Mistoak **akordatutakoa** betez, Tbilisiko soldaduak ez dira 500 baino gehiago izango. Berria - Mundua

Utrechteko Tratatuaren ondorioz, Espainiak Menorka eta Gibraltar utzi zituen Erresuma Batuaren esku, Gibraltarko subiranotasuna aldatzeko modu bakarra Espainiari itzultzea dela **akordatuz**. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akordatu da (9); **akordatu ere** (9); **akordatu eta** (3); **akordatu ginen** (4); **akordatu naiz** (16); **akordatu nintzen** (20); **akordatu zara** (3); **akordatu zen** (20); **akordatuko da** (3); **akordatuko zen** (4); **akordatzen al** (6); **akordatzen da** (8); **akordatzen dira** (5); **akordatzen ez** (10); **akordatzen gara** (3); **akordatzen haiz** (4); **akordatzen naiz** (46); **akordatzen nauk** (9); **akordatzen nintzen** (3); **akordatzen zara** (6); **akordatzen zen** (3); **al haiz akordatzen** (3); **asko akordatzen** (7); **asko akordatzen naiz** (5); **batekin akordatu** (3); **da akordatzen** (5); **dela akordatu** (3); **ere akordatu** (4); **ez da akordatzen** (4); **ez naiz akordatzen** (7); **ez nauk akordatzen** (4); **ez zen akordatzen** (3); **ezertaz akordatzen** (4); **haiz akordatzen** (3); **harekin akordatu** (3); **naiz akordatzen** (7); **nauk akordatzen** (4); **ondo akordatzen** (5); **ongi akordatzen** (3); **sarrionandiak akordatzen** (3); **zen akordatzen** (4)

---

akordatze *iz* oroitzea.

Hunkitu egiten naiz oraindik **akordatze** hutsarekin. Arantxa Iturbe

---

akorde 1 *iz* batera entzuten diren musika hotsen multzoa.

Akustikoa hartu zuen (elektrifikatua zegoen) eta horrela hasi zen **akorde** eta soloen dantza. Berria - Kultura

Gitarrajolea, atzealdeko itzaletan ia desagertuta, **akorde** eta arpegio batzuk tartekatzen hasi da leunki, bestearen jarduna nondik joan daitekeen igarriz agian, saioa girotzeko borondatez. Iñaki Iñurrieta

Piezaren erdi aldera, piano-joleak huts txiki bat egin zuen **akorde** batean eta gelditu egin zen. Anjel Lertxundi

Akorde horiek grekoek *phthongi* deitzen dituzten soinuen konjuntzioz sortzen dira. Santiago Iruretagoiena

Beethoven handiaren hileta-martxaren **akorde** irmo eta hunkigarriek lagunduta eraman behar zutela azken egoitzara. Bego Montorio

Edek atzamarrak pausatu zituen **akorde** luze batean. Lopez de Arana

Da Ruak **akorde** triste horiek entzunez, itsua joka ari zena Dowlanden Pavan Lachrimae zela ezagutu eta gogora ekarri zuen Dowland irlandarra katolikoa zela. Felipe Juaristi

Abiadura ezinezkoa, **akorde** zailak, ustekabeko aldaketak, egitura konplexuak. Berria - Kultura

Eskarmentu handiko Emma Schmidt piano jotzaileak, partiturarik gabe, ziurtasuna adierazi zuen arpegio eta **akorde** konplexuz beterik dagoen horretan. Berria - Kultura

Halatsuko zerbait izandu da neretzako toponimia, eta esan dezaket, ume-umetatik mila **akorde** sekretuz osaturiko sinfonia lurrezko hori adituz hazia dela nere bihotz koxkorra. Patziku Perurena

Pentsamendu hura sortu bezain laster suntsitu zen, Wagnerren **akorde** indartsuetan murgilduta, itota. denbora guztian **akorde** berdintsuak jotzen zituen gitarra-jole erdi lokartu zozo bat. Alberto Ladron Arana

Hala ere, ideia batek bide egin zuen nota eta **akorde** trinko haien artetik; ekaitz urrunak edo, auskalo, musika sorginduak ekarritako ideia izugarri batek. Alberto Ladron Arana

Dagoeneko isildu da gitarrajolea, bere **akorde**-arpegioak lekuz kanpo zeudela oharturik. Iñaki Iñurrieta

2 *akorde maior* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Akorde minorretatik **akorde maiorretara** pasatu ginen, eta horrek beste eremu batera eraman gintuen. ETC-prentsa

Erabat! Pentsa, Cohenek gaitasuna dauka **akorde maiorrekin** kantu tristeak egiteko. ETC-prentsa

Jatorrizko malenkoniaren hondarrak melodi tristeak osatzen bazituen, oraingo disko honetan, leloetan **akorde maiorrak** sartuz adibidez, doinu baikorragoak heltzen zaizkigu. ETC-prentsa

Tonikak, hirudunak eta bostunak triada edo **akorde maiorra** osatzen dute elkarrekin, eta hari esker dakigu batik bat zein den klabea. ETC-literatura, saiakera

Bere musika noten ondorioz, bere tonalitateko **akorde maiorrak** do maior, fa maior eta sol maior dira, minorrak la minor, re minor eta mi minor dira eta si bere akorde txikitua da. ETC-entziklopedia

3 *akorde minor* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

(teklak ukitzen ditu berriro) **Akorde minorrekoa** zatorrek orain. ETC-literatura, saiakera

Akorde minorretatik akorde maiorretara pasatu ginen, eta horrek beste eremu batera eraman gintuen. ETC-prentsa

Grabatutako musikan adibidez, **akorde minor** batetik maiorrera pasatzen den pasarte batean, hitzetan ere salto positibo bat ematen dut. ETC-prentsa

Ironia asko dago diskoan, baina malenkonia ere nabari da, **akorde minorrak** ... ETC-prentsa

Esan izan duzu **akorde minorren** klubekoa zarela. ETC-prentsa

4 *akorde perfektu* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Olivier Messianen Igokundea-n orkestra bitan&haize metalen kantu hotsa emankor lehen&hariaren erantzuna ondorengo&jarraian **akorde perfektuen** barne loturak giltzapean, bertikalki ausart. ETC-prentsa

Ezer ez dago aspergarriagorik **akorde perfektuen** segida bat baino. ETC-literatura, saiakera

5 *Tristanen akorde* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Tristanen akordea Fa, Si, RE# eta Sol# notek osatzen duten akorde bat da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akorde eta (4); **akordeak eta** (3); **eta akorde** (3)

---

akordeoi *(ETCn **2.016** agerraldi; cf **eskusoinu** **449** agerraldi; orobat **akordeon** g.er.)* **1** *iz* musika tresna, tekla edo botoiduna, jotzen den bitartean besoez eragiten zaion hauspo bat duena, erromerietan eta erabiltzen dena. ik **eskusoinu**.

Sartu orduko, **akordeoi** baten soinua entzun nuen: txaleko gorriz jantzitako gizon bat tarantela bat jotzen ari zen lokalaren bazter batean. Bernardo Atxaga

Trena, tuneletik irtendakoan, **akordeoi** baten gisara zimurtuta zihoan bidetik erdi irtenda, dinamitak eraginda. Josetxo Azkona

Ez, ez zegoen zalantzarik, A malenkoniatsu baten notak ziren, **akordeoi** batenak. Bernardo Atxaga

Bi makinak beren bideetatik irten ziren, txikitu egin ziren, eta bagoiek **akordeoi** baten itxura betea hartu zuten, benetan lazgarria. Karlos Linazasoro

2 (izenondoekin)

Kepa Junkera bilbotar **akordeoi** diatoniko joile aparta. Herria

Soinujoile bakar bat, **akordeoi** xoil batekin. Herria

Atera nintzen miradorera eta taulada gainean ikusi zintudan **akordeoi** beltz batekin. Bernardo Atxaga

Bere eztulak beldurgarriak ziren, bularrtxoa astindu eta **akordeoi** puskatu baten hotsa ateratzen zutenak. Bernardo Atxaga

Imagina ezazu ogia irabazteko **akordeoi** tipia jotzen duen neskatila itsua. Patziku Perurena

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Muriel eta Elixabet gazteek ere zoin polliki eman dituzten **akordeoi** doinu batzu! Herria

Orgina, Piano eta **Akordeoi** aire frango entzunen da goizeko 10 orenetarik eguerdi arte. Herria

Larunbat aratsean, Urruñan, Itsas-Mendi zinegelan, **akordeoi** kontzertua Felipe de Ezkurra-rekin, Jojo eta Ramuntxo kantari. Herria

Igandean, aratsaldeko 3-ak eta erdietan, Aiziritzen, **Akordeoi**-besta. Herria

Esana zidan ordurako aitak ikastetxetik atera ondoren **akordeoi** klaseetara joan beharko nuela. Bernardo Atxaga

Ondoren, 4 musika erakaslek, Nelly, arrabita jolea, David, gitarra jolea, Christelle, **akordeoi** jolea, eta Maylis tronpeta joleak Tzigane musika batzu jo dituzte: erritmoak, abiadurak, jendeak loriatu dituzte. Herria

Eta gauean berriro etxera, oinez, trenez, bizikletaz, ni bakarrik aldi honetan, beste guztiak baino beranduago itzultzen nintzelako **akordeoi** akademian azken klasea hartuta. Bernardo Atxaga

Akordeoi kontuak aipatzen dizkit niri. Bernardo Atxaga

Nahitaezko gaia zen urte hartako **Akordeoi** Lehiaketan, eta bere aitak behin eta berriro joarazten zion. Bernardo Atxaga

4 irud/hed

Zurrunbilo baten antzera, **akordeoi**-izurrekiko soineko gorri bat igaro zen haien aurretik. Lopez de Arana

5 ***akordeoi diatoniko***

Kepa Junkera bilbotar **akordeoi diatoniko** joile aparta. Herria

6 ***akordeoi kromatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Akordeoi kromatikoari ematen zion garrantzia. ETC-prentsa

Trikitiak ez dira aldatu, berdinak jotzen ditugu; **akordeoi kromatikoak** aldatu dira. ETC-prentsa

Lehen teklekin jotzen nuen, eta **akordeoi kromatiko** botoiduna jotzen hasi nintzen. ETC-prentsa

Nyckelharpa (Erdi Aroko biolina) eta **akordeoi kromatikoa** elkartuta, doinu berezia sortzen dute bi artistek. ETC-prentsa

Zeberiok nychelharpa joko du: Ramirezek, **akordeoi kromatikoa**. ETC-prentsa

Akordeoi kromatikoa ere ezagutu dugu guk larreko bezala, Louisianako beltz bat, piano jotzen, hiru gauza xinple jotzen, baina nola jo! ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akordeoi baten** (4); **akordeoi jotzailea** (3); **akordeoi jotzaileak** (3); **akordeoi lehiaketan** (6); **akordeoia eta** (5); **akordeoia jotzen** (3); **akordeoian eta** (3); **akordeoiaren i** (3); **akordeoiaren inguruan** (5); **akordeoiaren inguruko** (3); **arrasateko akordeoi** (3); **edo akordeoiarekin** (5); **eta akordeoi** (3); **eta akordeoia** (4)

---

akordeoilari *(orobat **akordeonalari**)* *iz /izond* akordeoi jotzailea.

Hiri nagusietako komandanturreko ordezkariak hor zeuden, besta-garaietan Kanttu **akordeoilari** eta Pitxi txistulariek hornitzen zuten tauladaren gainean. Itxaro Borda

Enrike Zelaia **akordeoilariak** kontzertua emango du gaur 21: 00etan Zarauzko Zinema frontoian, Akordeoiaren Nazioarteko Kongresuaren barruan. Berria - Kultura

Gaur 48 kide dauzka koroak, denak gizonak, salbu emazte **akordeoilari** bat. Herria

Lau neskato **akordeoilarik** egin digute ongi-etorria herri hortako arrabot estalian gure herriko doiñu eta aireekin. Herria

Akordeoilari bat epaitzeko zer zen nahikoa eta zer ez ongi zekiela juradoak, erantzun zioten Bergaratik. Koldo Izagirre

Izan ere, "arlo guztietan aitzindari izan den euskal **akordeoilarien** belaunaldiari omenaldia" egingo diote. Berria - Kultura

Une hunkigarriak oraino, Beñat Urdangarinentzat, Itsasu Esteben Bordako gure **akordeoilari** aitzindariarentzat, bere lehengusuak eta izeba bat aurkitu baititu. Herria

Karia hortarat, ortzirale aratseko 8ak eterditan, izanen da Luhusoko salan kontzertu handi bat: Ezpela taldea, Magali Zubillaga, Kattalin Indaburu, Perruketak, Argitxu Garat, Evelyne Massonde eta **Akordeoilari** multxo bat. Herria

Ortzirale aratsaldetik hasia baitzen besta ortzirale aratsean **akordeonalarien** besta berezia zen, euskaldun **akordeonalari** andana bat alderdi askotarik bildurik arizan dira gaitzeko trenpuan, jendea arras gustarazten zutela. Herria

---

akordeon ik **akordeoi**.

---

akordeonalari ik **akordeoilari**.

---

akordeonero *iz* akordeonista.

Hala esan du Petre **akordeoneroak**, irribarrez, erabakia azaltzearekin batera aurkeztu baitu bere burua: [...]. Joseba Sarrionandia

Petre naiz, **akordeoneroa**. Joseba Sarrionandia

---

akordeonista *(orobat **akordenixta** g.er. eta **akordenizta** g.er.)* *iz* akordeoi jotzailea, akordeoilaria.

Akordeonista gehiago baziren, Pepito Yantzi, Enrike Zelaia, Isidro Larrañaga, baina haien piezek bariazio gehiago edukitzen zituzten, ez ziren trikitirako modukoak. Pako Aristi

1942an sartu zen Olaeta taldean, **akordeonista** eta dantzari bezala, geroxago dantza-erakasle eta kantari Pariseko euskaldun ixtudiantek muntatu multxoan, azkenik, bakea etorriz geroz, Oldarraren buruzagi 8 urtez. Herria

Orai berriz partitzearekin nahi izan dugu musikaren aldetik arranjamendu zenbait ekarri, gomitatu ditugu bi gazte, **akordeonista** bat eta gitarra apala jotzen duen mutil gazte bat, horiek dira Laurent eta Cédric. Herria

Teodoro Etxeberri, gure **akordeonista**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Egun guziz gure karrikan alaitasuna emanen dute zenbait taldeek horiekin izanen ditugularik Pierre Lacabe, Sebastien Zamora eta Pantxika Lacarra gure herritar **akordeonista** gazteak. Herria

Gero Ave Maria deitzen diren **akordeonista** taldeak alaitu daute karrika. Herria

Eskoletako haurrak, Zirikolatzeko dantzari gazteak, **akordeonistak**, kantari gazteak, EMAK HOR eko musikariak, SPUC kirola batasunekoak. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gure akordeonista** (3)

---

akordeonistiko *izond* akordeoiarena, akordeoiari dagokiona.

Gertakaria, bada, hoztasun gehiagoz gogoratzea erabaki nuen, distantziaren zuhurtasunarekin, eta jarduera haren ondorioz ohartu nintzen urrunegi joan nintzela nire epaietan, ez zela izan halako burrunbarik ez lizunkeriarik, bai noski zimurdura **akordeonistiko** hura, baina **akordeonistikoa** hain prezeski, ezen istantean bagoia bere onera etorri baitzen hauspo erraldoi ikusezin batek bultzatuta bezala, eta, beraz, kaskateko edo zauri arinen bat izan ezik, denak bere hartan jarraitu zuen, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Karlos Linazasoro

---

akordeonixta ik **akordeonista**.

---

akordeonizta ik **akordeonista**.

---

akordio *(ETCn **76.916** agerraldi)* **1** *iz* hitzarmena, abenikoa. ik **itun**[1].

Akordio hori adostu zuten abere adoretsuarekin, eta, kontratu bat egiten denean, animaliekin izanik ere, kontratuaren klausulak betetzera behartzen du zuzentasunak. Karlos Zabala

Rion lortutako **akordioak**, hurrena, honako dokumentu hauetan jaso zituzten: Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Urduritu egin zen Iker, helduek haserre dauden uneetan ustekabeko **akordioak** lortzen baitituzte. Urtzi Urrutikoeetxea

Arantzazun gertatutako istiluak nahi ziren saihestu eta, aldez aurretik jendearen adostasuna lortuta, bake giroan **akordioetara** heldu. Koldo Zuazo

Borrokaren bitartez lortu izan dira nolabaiteko **akordioak** zuzendaritzarekin kartzela gehienetan. Jokin Urain

Han ginaudela, eskaini zidan würstel bat jan eta gero, bekatuaren auzora joan behar nuela azaldu nion, portu aldera, txerpolari harekin egotera, **akordio** bat itxi behar genuelaeta: gehienbat gauza asmatuak. Fernando Rey

Itoizko Koordinakundeak eta Iratiko ibarreko erakunde guztiek **akordio** hori bertan behera uzteko eskatu zuten. Edurne Elizondo

Eta ni, berrizalea ez baina gizon zibilizatua naizenez gero, txintik atera gabe onartu nituen Aintzanek aurkeztutako **akordioaren** baldintzak. Iban Zaldua

Ordu laurden bateko eztabaidaren ondoren, denen aurrean, Pitottik hitz eman zuen izenpetuko zuela **akordio** bat, langileak hartuko zituela agintzen zuena. Josu Zabaleta

Abokatu defendatzailearen (I) jardunaren ondoren, herri tribunaleko kideok hitz eta pitz hasi gara, eta zinez nekeza zirudien **akordio** batera heldu ahal izatea. Patxi Zubizarreta

Agustin deunaren bizitza kezkaz, zalantzaz, **akordioz** eta desakordioz josita dago eta estuki lotzen da bere pentsamenduarekin. Imanol Unzurrunzaga

Dena den, azken **akordio** horrek mende bat besterik ez zuen iraun behar. Ramuntxo Etxeberri

Aurrerabide teknikoa - aurrerabide eraginkorra denean -, enpresa multinazionalen inbertsio zuzenen bidez iristen da garapen-bideko herrialdeetara, azpikontratazioko **akordioen** bitartez eta patenteak emanez. Koro Navarro

Deitu zion Zabarkeriari -nagia baita hau egintza onak hasteko eta hasitakoak bukatzeko- eta **akordio** bat egin zuen berarekin, biak elkarturik fraide zintzoen aurka joateko. Askoren artean

Ez da ika-mika gehiago izanen ordu estrei buruz eta ez dugu lan eginen gau guztian inongo **akordiorik** gabe. Fernando Rey

Bazterretik jakin zuen Montplaisireko **akordio** horren berri apezpikuak, Arbelbidek aipatu aintzin eta batere ez zitzaion gustatu. Xipri Arbelbide

-Beka onartu zeneko **akordioa** goitik behera irakurri diat badaezpada, eta inon ez duk aipatzen argitaratze konturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Akordio hori onartua baitzuten biek. Felipe Juaristi

Espero bezala, zenbait tokitan eztabaida batzuk sortu ziren, hemendik edo handik iragan behar ote zuen bideak, baina, eztabaidak eztabaida, **akordio** batera iritsi ziren azkenik. Joan Mari Irigoien

Bien arteko erritmoetan alde handirik ez badago, hobe da muturrak albo batera utzi, negoziatu eta **akordioren** bat hitzartzea. Luis Elberdin

2 (izenondoekin)

Wendyk nahiago izango zukeen **akordio** iraunkorragoa, eta iruditu zitzaion udaberriei kosta egingo zitzaiela heltzen; baina promes horrek berriro poztu zuen Peter. Julen Gabiria

Inork ez daukala bizitzarik halako edo bestelako **akordio** judizialaren izenean emateko. Hasier Etxeberria

Halako **akordio** inplizitua erdietsi dute ezagutzen ez duten gazte horrekin: hasieran egunero egiten bazuten ere, bi egunez behin baino ez dute orain horma zuritzen. Harkaitz Cano

Babes taldearen ustez, konponbiderako gakoa "**akordio** multilateral bat" da, baina argi utziz akordio horrek herritar guztiei etorkizunari buruz galdetzea bermatu beharko duela. Berria - Euskal Herria

Akordio zabalagoa lortzea posible dela iritzi dio PSNko idazkariak, eta adostasun handi horri "ateak zabalik uzteko" eskatu du. Berria - Euskal Herria

Iaz Don Karlosek Zornotzan sinatutako **akordio** hitsaren ondoren, eta karlistek burua altxako bazuten, zerbait behar zitean. Txillardegi

Negoziazioetan, baina, FMI da beti giderra eskuetan duena, eta arraroa izaten da oso **akordio** zabalak eskuratu nahi izatea. Iñaki Heras

Akordio soziopolitikoaren lehen zirriborroa prest du Kontseiluak . Berria - Euskal Herria

Baina beraien artean ez zegoen horretaz **akordio** orokorrik, eta azterketa, egia esan, hasi berria zen. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hemen ere "commercium" hitzak itun-**akordioa** edo harremana esan nahi du, ezkontza-zentzua ere barnean hartzen duelarik Askoren artean

Era berean, kontrapisua izan zen nazioarteko merkataritza-espazioaren hausturaren arriskua dakarten eskualde-**akordioen** ugaltzearen aurrean. Koro Navarro

Horrez gainera, trukeen liberalizazioa ez da muga-sariak murriztera mugatzen, aldiz, nazioarteko merkataritzaren eremu grisak deritzanak ere hartu behar ditu apurka-apurka, hau da, mugasari ez diren hesiak eta esportazioaren gaineko borondatezko murrizte-**akordioak**. Koro Navarro

Gure hauteskunde programak hori jaso zuen baina gobernu **akordioa** beste gauza bat da. Berria - Euskal Herria

4 (-arteko-ren eskuinean)

Mahaia eratzea hartarako beharrik gabe atzeratzen ari dela salatu zuen, eta erantsi zuen alderdien **arteko akordioak** ezin direla "bestelako interesen edo gutxi gorabehera egiazkoak edo faltsuak diren aitzakiekin atzeratu". Berria - Euskal Herria

Gabaldoren arabera, Madrilen eta Rabaten **arteko akordioak** ez ditu etorkinen giza eskubideak bermatzen. Berria - Harian

- "Esan liteke EAEn sinatu diren lanbide **arteko akordioak** lortzeko kontseilua ez dela erabakigarria izan", dio testuak. Berria - Ekonomia

Japoniak bi herrialdeen **arteko akordioak** urratu zituela-eta, Estatu Batuek merkataritza-zigorrak eta yenaren balioa igotzeko presioak aldizkatu zituzten. Koro Navarro

Txinera zaharrean, esate bateko, "oinetako" hitzak "elkarren **arteko akordioa**" esanahia omen du. Patziku Perurena

Lan baten bila joana zen, Barzani jeneralaren eta gobernuaren **arteko akordioak** aukera hori ematen baitzion. Juan Kruz Igerabide

5 *akordiora iritsi*

Gizonak, emakumeak, ar eta emeak **akordiora iritsi** gabe, oraindik elkarren artean ulertzeko horrenbeste gelditzen zenean, gaixoeraren beldurra. Lourdes Oñederra

Athleticek atzo bertan **akordiora iritsi** ondoren kendu zuen salaketa Liga Profesionalean, eta horri esker Osasunak Jusue Recreativori utzi ahal izango dio. Berria - Kirola

Sindikatuon iritziz, **akordiora iristeko** gogoa "hitzez bakarrik" azaldu du. Berria - Ekonomia

Hamalau hilabete igaro dituzte testuak jasotzen dituen neurrien inguruan eztabaidatzen, eta **akordiora iritsi** ezinik. Berria - Ekonomia

6 aurre-akordio ik **aurreakordio**.

7 *bake akordio*

Handik astebetera, berriz, maiatzaren 15ean, **bake-akordioa** sinatu zuten Zornotzan Serrano jeneralak, batetik, Madrileko gobernuaren aldetik; eta Bizkaiko Diputazio karlistak, bestetik, Carlos VII.arenetik. Txillardegi

Eta honen ordez, ni neu egiten naiz erantzule zuen aurrean, berak leial gordeko duela **bake akordioa**. Askoren artean

Bake akordioak errepublikanoen sentimendu iraultzaileak desagertzea bilatzen du, kontzesio batzuk eskainiz eta konpromisoak eskatuz. Berria - Mundua

2002an **bake akordioak** sinatu zituzten arren, hilero 31.000 zibil hiltzen dira. Berria - Mundua

Ostiral Santuko **bake akordioaren** ondorioz askatu zuten lehenengo emakumea izan zen Rosie McCorley (48 urte ditu egun). Berria - Harian

8 *erosketa globalaren akordio* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Erosketa globalaren akordio bat edo demanda bat bezero batek bere hornitzailearekin aldi baterako entrega datak jartzeko jartzen duen erosketa agindu bat da, askotan aldez aurretik zehaztutako hobariez baliatzeko negoziatua. ETC-entziklopedia

9 *esparru akordio* *(corpusean ez dago; ETCn **205** agerraldi)*

James Baker NBEko idazkari nagusiaren ordezkariak egindako proposamena "**Esparru Akordioaren** errepika moldatua" dela salatu du, eta Maroko barruan Mendebaldeko Sahararen autonomia bultzatzen duela. ETC-prentsa

Urratsak bizkortze aldera, erakunde arteko **esparru akordio** bat hitzartu nahi du Jaurlaritzak, eta horretarako deia egina die instituzioei. ETC-prentsa

Bestalde, LABek ere porrot egin zuen **Esparru akordio** sektorialak ixteko saioan. ETC-prentsa

Zeinen urrun nabaritzen den euskal patronal eta sindikatu nagusiek urtarrilaren 16an sinatu zuten sektore arteko **esparru akordio** historikoa. ETC-prentsa

Zertarako egin zenuten sektore arteko **esparru akordioa** Confebaskekin? Kutxa huts bat da oraindik ere. ETC-prentsa

Joan den apirilean, Jaurlaritzak eta patronalak bien artean adostu zuten enpleguaren eta prestakuntzaren **esparru akordioa**, hiruko mahaira eraman ere egin gabe, eta horrek hautsi egin zuen mahaia. ETC-prentsa

Errelebo kontratuaren laguntzen inguruko akordioa, gazteen bekak kontratu bihurtzekoa, eta sektore arteko euskal **esparru akordioa**: mahaian dauka oinarria. ETC-prentsa

Izan ere, ATM Milanorekin egindako **esparru akordioa** Solarisek orain arte lortu duen handienetako bat da. ETC-prentsa

Sukaldaritza sozialean aritzen diren elkarteen Espainiako patronalak ez du atzera egin lanbide arteko **esparru akordioa** sinatu zuten eragileekin izaniko bileran. ETC-prentsa

Kontratuen, **esparru-akordioen** eta eskuraketa sistema dinamikoen balio zenbatetsia kalkulatzeko metodoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Foru lege honetan negozio juridiko bakoitzerako ezarritako moduan, eskumena duen departamentuak zilegi du **esparru-akordioak** egitea, non zehaztuko baitira epe jakin batean egin asmo diren ondasunen eskurapen, besterentze edo errentamendu eragiketa zehatzetan bete beharreko baldintzak. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *merkataritza-akordio*

Merkataritza akordio guztiak berriz aztertu nahi ditu, herrialde esportatzaileek lan eta ingurumen estandar guztiak betetzen dituztela ziurtatzeko. Berria - Mundua

Vietnamek eta Europako Batasunak **merkataritza akordioa** lortu berri dutela jakinarazi zuen atzo Europako Batzordeak. Berria - Ekonomia

Europako Batasunak estatu kideei Israelekiko **merkataritza akordioak** eteteko eskatu zien, baina ez da halakorik gertatu. Berria - Harian

ALBA Ameriketarako Alternatiba Bolivarianoa bultzatuko duen **merkataritza akordioa** sinatu zuten atzo Habanan Kubako, Venezuelako eta Boliviako presidenteek Fidel Castro, Hugo Chavez eta Evo Morales, hurrenez hurren. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

abertzaleen arteko akordio (5); **ahalik eta akordio** (5); **akordio bat** (260); **akordio bat egin** (12); **akordio bat egiteko** (5); **akordio bat hitzartu** (6); **akordio bat hitzartzeko** (6); **akordio bat iristeko** (5); **akordio bat izenpetu** (7); **akordio bat lortu** (18); **akordio bat lortzea** (12); **akordio bat lortzeko** (23); **akordio bat sinatu** (26); **akordio batean** (10); **akordio baten** (44); **akordio baten alde** (5); **akordio baten bidez** (7); **akordio batera** (109); **akordio batera iristea** (8); **akordio batera iristeko** (15); **akordio batera iristen** (5); **akordio batera iritsi** (46); **akordio baterako** (8); **akordio batetara** (9); **akordio bati** (11); **akordio berri** (19); **akordio berri bat** (13); **akordio berria** (10); **akordio bidez** (6); **akordio eremu** (5); **akordio eta** (12); **akordio gisa** (7); **akordio hau** (11); **akordio historikoa** (8); **akordio honek** (5); **akordio honen** (7); **akordio hori** (79); **akordio hori ez** (5); **akordio horiek** (14); **akordio horien** (5); **akordio horrek** (32); **akordio horrekin** (8); **akordio horren** (43); **akordio horren arabera** (13); **akordio horretan** (10); **akordio horri** (10); **akordio horri esker** (7); **akordio integratzailea** (5); **akordio nazional** (7); **akordio nazionala** (7); **akordio ona** (6); **akordio orokor** (6); **akordio orokorra** (11); **akordio politiko** (19); **akordio politikoa** (25); **akordio politikoak** (27); **akordio politikoak lortzeko** (6); **akordio sozio** (9); **akordio soziopolitikoa** (18); **akordio soziopolitikoaren** (9); **akordio zabal** (10); **akordio zabal bat** (5); **akordio zabala** (28); **akordio zabala lortzea** (9); **akordio zabalak** (7); **aldeak akordio** (5); **artean akordio** (7); **arteko akordio** (31); **babesteko akordio** (7); **baina akordio** (7); **bake akordio** (18); **bake akordio bat** (7); **beste akordio** (9); **beste akordio bat** (9); **bi akordio** (8); **bi aldeak akordio** (5); **da akordio** (16); **dela akordio** (5); **den akordio** (13); **dira akordio** (7); **diren akordio** (5); **du akordio** (15); **duen akordio** (19); **dute akordio** (6); **edozein akordio** (8); **elkarrizketa eta akordio** (7); **eta akordio** (74); **eta akordio bat** (8); **eta akordio batera** (7); **eta akordio hori** (9); **euskalgintza babesteko akordio** (7); **gainditzeko akordio** (6); **gaineko akordio** (7); **gatazka gainditzeko akordio** (5); **gobernu akordio** (6); **gobernuak akordio** (5); **hainbat akordio** (6); **hitzartutako akordio** (7); **inguruan akordio** (11); **irakeko akordio** (6); **lortutako akordio** (8); **oinarrizko akordio** (9); **zen akordio** (7); **zuen akordio** (7); **zuten akordio** (12)

abertzaleen arteko akordioa (5); **akordioa adostu** (10); **akordioa adostu zuten** (5); **akordioa atzo** (5); **akordioa aurkeztu** (5); **akordioa babestu** (5); **akordioa baino** (5); **akordioa behar** (5); **akordioa berretsi** (10); **akordioa bertan** (13); **akordioa bertan behera** (12); **akordioa beste** (7); **akordioa bete** (5); **akordioa betetzeko** (10); **akordioa betetzen** (5); **akordioa bilatzea** (6); **akordioa bilatzeko** (8); **akordioa da** (12); **akordioa dela** (12); **akordioa dela eta** (5); **akordioa du** (5); **akordioa egin** (54); **akordioa egin du** (7); **akordioa egin dute** (5); **akordioa egin nahi** (5); **akordioa egin zuten** (8); **akordioa egitea** (22); **akordioa egiteko** (22); **akordioa egiten** (5); **akordioa egon** (7); **akordioa erabat** (5); **akordioa erdiestea** (5); **akordioa erdiesteko** (7); **akordioa erdietsi** (8); **akordioa ere** (8); **akordioa errespetatzeko** (5); **akordioa eskatu** (5); **akordioa eta** (32); **akordioa euskal** (7); **akordioa ez** (42); **akordioa ez da** (7); **akordioa ez dela** (5); **akordioa ezinezkoa** (5); **akordioa gauzatzeko** (6); **akordioa hautsi** (8); **akordioa hitzartu** (27); **akordioa hitzartu dute** (9); **akordioa hitzartu zuten** (6); **akordioa hitzartzeko** (6); **akordioa ia** (7); **akordioa indarrean** (10); **akordioa iritsi** (5); **akordioa itxi** (17); **akordioa izan** (8); **akordioa izenpetu** (23); **akordioa izenpetu dute** (5); **akordioa kritikatu** (5); **akordioa lor** (5); **akordioa lortu** (201); **akordioa lortu behar** (9); **akordioa lortu du** (19); **akordioa lortu dute** (45); **akordioa lortu eta** (5); **akordioa lortu nahi** (10); **akordioa lortu ondoren** (7); **akordioa lortu zuen** (20); **akordioa lortu zuten** (17); **akordioa lortuko** (9); **akordioa lortuta** (12); **akordioa lortuz** (13); **akordioa lortuz gero** (9); **akordioa lortzea** (60); **akordioa lortzea espero** (7); **akordioa lortzeko** (132); **akordioa lortzeko aukera** (7); **akordioa lortzen** (32); **akordioa lortzen bada** (5); **akordioa lortzen ez** (5); **akordioa lotu** (9); **akordioa nahi** (7); **akordioa ona** (6); **akordioa onartu** (16); **akordioa osoki** (5); **akordioa posible** (7); **akordioa sinatu** (150); **akordioa sinatu du** (9); **akordioa sinatu dute** (24); **akordioa sinatu eta** (9); **akordioa sinatu ez** (5); **akordioa sinatu ondoren** (5); **akordioa sinatu zuen** (12); **akordioa sinatu zuten** (51); **akordioa sinatuko** (5); **akordioa sinatzeko** (12); **akordioa urratu** (5); **aldeek akordioa** (6); **alderdien arteko akordioa** (14); **artean akordioa** (12); **arteko akordioa** (116); **arteko akordioa lortzeko** (7); **atzo akordioa** (5); **azken akordioa** (5)

bai euskarari akordioa (28); **baina akordioa** (10); **bake akordioa** (70); **bake akordioa sinatu** (13); **batasunarekin akordioa** (6); **behin behineko akordioa** (5); **behin betiko akordioa** (7); **behineko akordioa** (5); **betiko akordioa** (7); **bi aldeek akordioa** (6); **bultzatzeko akordioa** (5); **buruzko akordioa** (47); **buruzko akordioa lortu** (6); **buruzko akordioa lortzea** (5); **da akordioa** (18); **den akordioa** (11); **dituen akordioa** (14); **du akordioa** (20); **duen akordioa** (30); **dugu akordioa** (7); **dute akordioa** (24); **duten akordioa** (18); **eerekin akordioa** (6); **egindako akordioa** (6); **egiteko akordioa** (9); **elkarrizketa eta akordioa** (8); **ere akordioa** (8); **eta akordioa** (64); **eta akordioa lortu** (5); **eta akordioa lortzeko** (5); **eta ugtk akordioa** (5); **eten akordioa** (5); **euskarari akordioa** (28); **ez zuen akordioa** (5); **gabeko akordioa** (5); **gainditzeko akordioa** (6); **gaineko akordioa** (8); **garaziko akordioa** (12); **gobernu akordioa** (28); **gutxieneko akordioa** (8); **guztien arteko akordioa** (10); **hiru urterako akordioa** (8); **hitzartutako akordioa** (16); **horretan akordioa** (5); **inguruan akordioa** (8); **inguruko akordioa** (28); **inguruko akordioa lortu** (5); **jartzeko akordioa** (5); **jaurlaritzarekin akordioa** (5); **koalizio akordioa** (6); **konpontzeko akordioa** (10); **lankidetza akordioa** (12); **lankidetza akordioa sinatu** (6); **lehen akordioa** (5); **lizarra garaziko akordioa** (12); **lizarrako akordioa** (8); **lortu zuten akordioa** (16); **lortutako akordioa** (48); **luzatzeko akordioa** (5); **malgutasun akordioa** (5); **merkataritza akordioa** (5); **normalizazio politikorako akordioa** (5); **oinarrizko akordioa** (9); **oinarrizko akordioa lortzea** (6); **osatzeko akordioa** (5); **osloko akordioa** (6); **ostiral santuko akordioa** (40); **politikorako akordioa** (5); **pse eerekin akordioa** (6); **santuko akordioa** (40); **santuko bake akordioa** (15); **sinatu zuten akordioa** (12); **sinatutako akordioa** (15); **sindikatuekin akordioa** (7); **su eten akordioa** (5); **udal akordioa** (8); **ugtk akordioa** (6); **urteko akordioa** (8); **urterako akordioa** (13); **zen akordioa** (12); **zion akordioa** (5); **zuen akordioa** (39); **zuen akordioa sinatu** (5); **zuten akordioa** (49)

akordioak bete (6); **akordioak bi** (7); **akordioak bilatzeko** (9); **akordioak egin** (11); **akordioak egitea** (12); **akordioak egiteko** (22); **akordioak errespetatzeko** (7); **akordioak eta** (17); **akordioak ez** (31); **akordioak ez du** (11); **akordioak lor** (6); **akordioak lortu** (21); **akordioak lortzea** (10); **akordioak lortzeko** (60); **akordioak lortzen** (8); **akordioak sinatu** (12); **akordioan ez** (7); **akordioarekin bat** (12); **akordioarekin bat egin** (6); **alderdien arteko akordioak** (5); **arteko akordioak** (36); **bake akordioak** (25);

bake akordioan (8); **bestelako akordioak** (5); **da akordioak** (5); **diren akordioak** (8); **dituzten akordioak** (5); **du akordioak** (10); **duten akordioak** (8); **eta akordioak** (32); **eta akordioak lortzeko** (12); **gutxieneko akordioak** (5); **hitzartutako akordioak** (12); **inguruan akordioak** (6); **inguruko akordioak** (7); **lortutako akordioak** (20); **lortutako akordioarekin** (9); **osloko akordioak** (8); **ostiral santuko akordioak** (6); **ostiral santuko akordioan** (9); **santuko akordioak** (6); **santuko akordioan** (9); **santuko bake akordioan** (5); **sinatutako akordioak** (16); **udal akordioak** (7); **zituen akordioak** (5); **zuen akordioak** (5)

ahalik eta akordiorik (5); **akordioaren alde** (11); **akordioaren aldeko** (13); **akordioaren arabera** (56); **akordioaren aurka** (10); **akordioaren aurkako** (5); **akordioaren baldintzak** (5); **akordioaren berri** (16); **akordioaren berri eman** (5); **akordioaren bidez** (22); **akordioaren bitartez** (5); **akordioaren edukiak** (6); **akordioaren eta** (11); **akordioaren inguruan** (11); **akordioaren kontra** (5); **akordioaren oinarriak** (6); **akordioaren ondoren** (8); **akordioaren ondorioz** (13); **akordioaren ondotik** (5); **akordioaren ostean** (8); **akordioaren sinatzaileek** (5); **akordioari buruz** (10); **akordioari buruzko** (5); **akordioari esker** (23); **akordioari ezetz** (5); **akordioek duten** (5); **akordioek duten baino** (5); **akordioen bitartez** (7); **akordioetara iristea** (7); **akordioetara iristeko** (21); **akordiora iristeko** (6); **akordiora iritsi** (8); **akordiorako aukera** (5); **akordioren bat** (21); **akordioren bat lortzeko** (5); **akordiorik egin** (11); **akordiorik egingo** (5); **akordiorik eta** (7); **akordiorik ez** (93); **akordiorik ez bada** (9); **akordiorik ez badago** (7); **akordiorik ez dela** (7); **akordiorik ez dute** (5); **akordiorik ez dutela** (5); **akordiorik ezean** (14); **akordiorik ezin** (5); **akordiorik gabe** (26); **akordiorik hitzartu** (5); **akordiorik izan** (8); **akordiorik lortu** (104); **akordiorik lortu ez** (19); **akordiorik lortu ezean** (15); **akordiorik lortu gabe** (6); **akordiorik lortuko** (9); **akordiorik lortzeko** (6); **akordiorik lortzen** (16); **akordiorik lortzen ez** (12); **akordiorik onena** (5); **akordiorik zabalena** (6); **akordiotik kanpo** (7); **artean akordiorik** (9); **artean akordiorik ez** (7); **arteko akordioaren** (11); **arteko akordioek** (8); **arteko akordioek duten** (5); **arteko akordiorik** (9); **arteko akordiorik ez** (5); **bai euskarari akordioaren** (10); **baina akordiorik** (7); **bake akordioaren** (30); **barne akordioaren** (5); **da akordioaren** (6); **da akordiorik** (10); **dago akordiorik** (8); **du akordiorik** (5); **duen akordioaren** (5); **dugu akordiorik** (8); **dute akordiorik** (16); **dute akordiorik lortu** (14); **eajrekin akordiorik** (7); **edozein akordiok** (5); **egindako akordioaren** (9); **elkarrizketa eta akordioaren** (8); **eta akordioaren** (27); **eta akordioaren aldeko** (9); **eta akordioaren bidez** (7); **eta akordiorako** (15); **eta akordiorik** (11); **eta akordiorik zabalena** (5); **euskarari akordioaren** (10); **ez da akordiorik** (7); **ez dago akordiorik** (8); **ez dugu akordiorik** (7); **ez dute akordiorik** (16); **ez zen akordiorik** (7); **ez zuten akordiorik** (16); **garaziko akordioaren** (12); **hitzartutako akordioaren** (10); **hitzartutako akordioaren arabera** (6); **inguruan akordiorik** (6); **inolako akordiorik** (17); **inongo akordiorik** (6); **irakeko akordioaren** (5); **lizarra garaziko akordioaren** (12); **lortutako akordioaren** (19); **lortutako akordioari** (12); **orain arteko akordioek** (5); **osloko akordioen** (9); **ostiral santuko akordioaren** (16); **santuko akordioaren** (16); **santuko bake akordioaren** (9); **sinatutako akordioaren** (9); **sinatutako akordioaren arabera** (5); **sinatutako akordioari** (6); **zen akordioaren** (5); **zen akordiorik** (9); **zen akordiorik izan** (6); **zuen akordioaren** (7); **zuten akordiorik** (16); **zuten akordiorik lortu** (14)

---

akordiobide *iz* akordiorako bidea.

Elkarrizketa, harremanak, edo transferentzien negoziaketa eskaini, eta, bitartean, Ibarretxe plana usteltzen utzi, beste mota bateko **akordiobidea** nagusi dadin. Berria - Euskal Herria

EAk **akordiobideak** ditu beste taldeek aurkeztutako zuzenketekin, EAJ, SA eta Ezker Batuarenekin. Berria - Euskal Herria

Besteak beste, **akordiobide** posible bakarra ezker abertzalearekin dela irudikatuko litzatekeelako. Berria - Euskal Herria

---

akordu 1 *iz* oroitzapena.

Harrezkero berton bizi da, **akorduez** inguraturik. Edorta Jimenez

Badira burutik kendu ezin ditudan **akordu** batzuk. Edorta Jimenez

-Unzain! -haren **akordua** ez zaio bat ere ezabatu-. Edorta Jimenez

Kapilauaren **akorduak** bihurritu egin zizkion hesteak. Koldo Izagirre

Horrek, berriz, Zubiaur jakintsuaren **akordua** eragin zidan. Edorta Jimenez

Ezerk ez zeukan Ritaren **akorduak** bezainbesteko indarrik nigan. Hasier Etxeberria

Auto errea berritu zuen nire **akorduak**, baina oroitzapenak ez zeukan zuhaitzetako gorri udazkentsuaren garrik. Anjel Lertxundi

Badaezpada ere, berriro irakurri dut, **akorduek** bai-baitakite urteen poderioz guztiz aldatzen ere. Joxerra Garzia

Momentu arraroak izan ziren, denboraren kontrakzio bat bezala, **akorduan** dut enarak zebiltzala uda hasierako aire gardenean gezien moduan. Joseba Sarrionandia

Akorduan dut bat, orain urte pare bat edo, nola Euskadi Irratiko Susana Mujikak, goizeko seiak eta laurdenean, berarekin eguraldiari buruzko solasa egitean, bezperako eguraldi arraro bereziaz galdetu zidan. Pello Zabala

Akorduan daukat Rodriguez Arias kalekoa. Lutxo Egia

Neure **akorduan** ez dago ez halako ez antzeko ezertxo ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Uholde handi horietakoak gelditzen dira **akorduan**: 6 orduko erauntsia Bartzelonan, adibidez. Pello Zabala

Egunotan, prentsak dakartzan albisteen harira, **akordura** etorri zait plagioari buruzko Atxagaren ipuin hura. Joxerra Garzia

Apiril onik ez dagoeneko kontu hori ere egoki dator beste behin **akordura** ekartzea. Pello Zabala

Ikusia nintzen filme bat -ezin izena **akordura** ekarri-, gizonezko protagonistak larrua jotzen bukatzen baitzuen oneratu nahiz ari zitzaion erizainarekin. Aingeru Epaltza

Nik, beste esaldi honengatik ekarri dizuet San Pantaleon **akordura**: San Pantaleon, uria ezti ta on! Pello Zabala

Ez nezala hori **akordutik** galdu sekulan. Koldo Izagirre

Orduan ohartu zen ez zuela aurreko asteetan ikusiaren **akordurik** ere. Koldo Izagirre

Ez daukat **akordu** lasai gozorik hartan egindako lanarekin. Pello Zabala

2 *akordua eduki* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Gure aitak ere bazuen Etxanoko mendi punta batean bizi zen izeba bat, bakarrik bizi izan zena, eta **akordua daukat** hara joan, eta eskailera buruan akerra ikusi izana: edo gure amama txakurrekin borrokan, zauriak egin eta katuari ematen miazkatzeko... ETC-prentsa

Akordua beti etortzen zait Azoka zegoenean han beste aldean, Merkatu Plaza ondoan, eta haren **akordua daukat** gurasoekin etortzen nintzenean. ETC-literatura, saiakera

3 *akorduan eduki*

Ez zidan bertatik bertara entzun nuen lehen idazlearen jardunak hitz gogoangarririk txertatu, baina **akorduan daukat** mintzaldiaren amaieran arrebaren lagun batek iritzia eskatu ziola, ez dakit zertaz. Koldo Izagirre

Nire zazpi urteak aspaldi joan ziren, **akorduan baitaukat** nola adin horrekin aitak azken aldiz esan zidan Errege Magoak Ekialdetik jostailuz gainezka etortzen zirela, eta nola nik sinetsi egin nion. Jon Muñoz

Bai Australian eta baita jaioterrian ere: **akorduan zeuzkaten** harako zelai, soro, etxe eta errekak ezin utzitako moduan egon. Xabier Montoia

Akorduan daukat Rodriguez Arias kalekoa. Lutxo Egia

4 *akorduan izan*

Ez dator gaizki, ez, honelakoak noizbehinka gogora ekartzea, eguraldiak betiko lepotik dituela bere baldintza eta proportzioak **akorduan izan** dezagun. Pello Zabala

5 *akordura ekarri*

Baina, apiril onik ez dagoeneko kontu hori ere egoki dator beste behin **akordura ekartzea**. Pello Zabala

Zigarro bat pizteak eta garagardo hurrupada batek lagundu ninduten toki horretan azkena izan gineneko liburuak **akordura ekartzera**. Aingeru Epaltza

Kemena berreskuratzeko, urteetako gorrotoa **akordura ekartzen** saiatu zen. Berria - Kultura

Oso gustura, estimazio biziz **akordura ekarri** dudan kontua da hauxe. Pello Zabala

Honela mintzo da garai haiek **akordura ekartzean** Tomasi Redondo ordiziarra: "Gu ezer gabe geratu ginenez, inongo ondasunik gabe, doaneko eskolara joaten ginen, nazionaletara". Jokin Urain

Maisuak eroan ginduzan; mainguak -dio, maisuagatik, haren irudi zehatza beste lagun bien **akordura ekarri** guran, edo haren maisu eta maingu aldi berean izatea oraindino ondo mamitu barik bailuen. Edorta Jimenez

Eta isildu egin zait kopeta zimurtuz, Anton Patiño **akordura ekarri** nahirik, menturaz. Koldo Izagirre

Behin Bonapartius, Errusiako kanpaina baino lehen, berarengana etorri zen etorkizunerako iragarpen eske, eta Zilarbizik, tabernazuloko mihi-gaiztoek **akordura ekartzen** zutenez, hitz hauexekin erantzun omen zion. Felipe Juaristi

6 *akordura etorri*

Egunotan, prentsak dakartzan albisteen harira, **akordura etorri** zait plagioari buruzko Atxagaren ipuin hura. Joxerra Garzia

Mutil gazteak ez zuen etsi nahi; ez zuen sinetsi nahi Justina don Leonardorekin ezkontzera zihoanik; are sinesgaitzago egiten zitzaion bezperan elkarrekin bizi izandakoa **akordura zetorkionean**. Felipe Juaristi

Horrelako jolasak ohikoak dira erdarazko literaturetan, ez hainbeste gurean; **akordura datozkit** Txalapartak argitaratutako Marihuanazko bufandak, Eguzkik plazaratu zituen Ipuin berdeak (ez, ez ziren ipuin erotikoak, ekologiaren ingurukoak baizik) eta besteren bat. Berria - Kultura

7 *akordutik joan*

Besteak bezain alai azaldu behar duzu, adinak halakoak dituela adierazi behar diezu ezagunen baten izena **akordutik joaten** nahitarat utzita, ez daukazu eskubiderik hurkoa baino tristeago egoteko, betiko ergelkerien motela txalotu behar duzu, algara-merke ikusi behar zaituzte. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akordu poetikoak** (4); **akordua ekarri** (5); **akordua eragin** (5); **akordua eragin zidan** (4); **akordua ere** (3); **akordua eta** (4); **akorduan dut** (4); **akorduan ez** (3); **akordura ekarri** (7); **akordura ekartzen** (3); **baten akordu** (3); **baten akordu poetikoak** (3); **etorri zaio akordura** (4); **etorri zitzaidan akordura** (6); **etorri zitzaion akordura** (4); **geografia baten akordu** (3); **hansen akordua** (3); **haren akordua** (6); **horren akordurik** (3); **zaio akordura** (4); **zitzaidan akordura** (6); **zitzaion akordura** (4)

---

akorduan *adlag* oroimenez, oroimenean.

Zurrut egin duzu Diana ahaztaraziaren **akorduan**. Lutxo Egia

Baina ez: neure etxetik 500 metrora baldin badut ere, bertako osaba-izebekin harreman jator eta atsegina izan arren, nik ez dut inoiz baserrirako joerarik izan, beti izan naiz kale-ume eta kalezale, neure **akorduan**. Xabier Mendiguren Elizegi

"Hona aukera!", esan nuen nire artean, gehienak Torrontegi hotelean biltzen zirela **akorduan**. Edorta Jimenez

Lore lurrin astun hura gelditu zitzaion **akorduan** betirako, loreen eztitasun betegarria zen heriotza. Koldo Izagirre

Uholdeak sarritan beren azioak egiteaz gainera, ekaitz eta tximist-oinaztuen kronikak dira maiatzaren **akorduan** destakatzen direnak. Pello Zabala

---

akort 1 *adlag* ados.

Gilen eta biok noizbait gertatuak ginen ariketa azkar horien lekuko, baina, **akort** etorri behar izan gabe, inoiz ez genuen Estefania horren jakitun egin. Aingeru Epaltza

Alabaina, lehen aldian bi jujeak ez ziren **akort** eman, bata enpresa buruen sailekoa eta bestea langileen aldekoa izanki. Herria

Alabaina, **akort** emanak dira BAM hiri elkargoa eta abere hildegia baliatzen zuten sozietate pribatuak, hauen esku izanen den erakunde pribatuak kudeatuko duela abere hildegi hori. Herria

Jar gaitezen **akort**. Juan Garzia

Gisa oroz ez naiz beldur: aski azkar gira oraino, gure botereak defendatuko ditugu ikusiz zein gauzetan jarriko garen elgarrekin **akort**. Herria

Harekin lagun bakarra joaten ahal zen, eta hura Edurne izanen zela erabakitzeko ez genuen **akort** jartzeko premiarik izan. Aingeru Epaltza

Irlandarrek egin dute Berlusconi-k egin ez zuena sei hilabete lehenago, denekin harremanetan sartu, luzaz mintzatu eta, azkenan, denak **akort** ezarri. Herria

Euskaraz mintzo ginen **akort** elgarrekin. Herria

Beharrik ez beti **akort**, hatik algar lagüntzale. Herria

2 *akort izan*

Ez **dira** bizkitartean denak **akort** Estatu Batuetan Bush presidentak deraman politikarekin. Herria

Txoko **akort zen** eta Aratxe izenekoa gurutzatzearekin, Patxi non zegoen eskatu zion. Itxaro Borda

Erran gabe doa Amerikanoak **akort zirela** bilkura horrekin eta behar ziren kontseiluak emanak zituztela. Herria

Nolanahi ere, baldin uste baduzu ez dela zilegi, hitz ematen dizut hari izkiriatzetik begiratuko naizela; uste dut ordea **akort izanen zarela** nirekin, ezen ez dagoela horretan kalterik. Nolanahi ere, baldin uste baduzu ez dela zilegi, hitz ematen dizut hari izkiriatzetik begiratuko naizela; uste dut ordea **akort izanen zarela** nirekin, ezen ez dagoela horretan kalterik. Jon Muñoz

Haatik Jesükristoren nortarzünaz ez **gira** harekin **akort**, bestelan müsülman ginateke. Herria

Deyheralde hil zelarik bere lagunek nahi izan zutela Arbelbide zuzendaritzat, bainan gehienak ez **akort izanez**, Hiriart zela izendatua izan eta honek bere kargua uzterakoan, 80 urtetan, Arbelbide zela kargu horretara izendatua izan. Xipri Arbelbide

Hain segur ere horrengatik dira horko kargudunak ez **akort izanen**. Herria

3 *akort egon*

Orain maite du batak bertzea eta orain gorrotatzen du, orain **akort** eta alegera **daude** eta orain muturjoka eta haserre. Joan Mari Irigoien

-Ongi, Joanikot, oso ongi, **akort nagok** hirekin, guztiz akort, zeren eta, hautuen egiteko orduan, etxekoak eta auzokoak dituk lehenbizi.Eta orain ere katolikoa nauk, baina ez **nagok akort** Eliza Katolikoak egiten duen guztiarekin. Joan Mari Irigoien

Usmetuko zuen ordea handik botatu zuen gose berdinera bidaliko dutela bihar edo etzi, horretan **akort egon** behar luke Eustakiorekin. munduaren ezagutzea gauza ona zela eta hartan aitona Nikolasen ustekoa eta aburukoa zela, negozioen aitzinatzeko moduaz eta maneraz harekin deusetan **akort egon** ez **bazen** ere. Koldo Izagirre

4 *akort ezarri*

Irlandarrek egin dute Berlusconi-k egin ez zuena sei hilabete lehenago, denekin harremanetan sartu, luzaz mintzatu eta, azkenan, denak **akort ezarri**. Herria

5 *akort jarri*

Harekin lagun bakarra joaten ahal zen, eta hura Edurne izanen zela erabakitzeko ez genuen **akort jartzeko** premiarik izan. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akort eta** (4); **akort izanen** (3); **denak akort** (5)

---

akortasun *iz* bat etortzea.

", hura existentziara ez-existitzearen ondoan heldu zela onartu ondoren ez bada, eta horixe da, hain zuzen ere, **akortasunik** gabeko gaia. Xabier Kintana

Baina izaki horri buruz, zeinez **akortasunik** ez dagoen, horren existentzia beti den bezalakoa izan den eta beti horrelakoa izango ote den, ala ez-izate (absolutuaren) ondoan ba ote den, ez legoke horri buruz gogoeta egiterik, eta ezinezkoa litzateke hau galdetzea: [...]. Xabier Kintana

---

akortean *adlag* ados.

Goragoko orrialdeek erakusten dute, urrats guziak apepikuarekin **akortean** egin dituela. Xipri Arbelbide

Goragoko orrialdeetan argi da, urrats guziak apezpikuarekin **akortean** egin dituela Arjentinara joan arte eta handik ditugun azken berriak arte. Xipri Arbelbide

Bozak ez baziren ere beti **akortean**, denentzat laudoriozko, eta bereziki laguntza eskezko otoitza zen. Marzel Etxehandi

Hiriak utzi dituztenen familien ibilbidea, lurren okupatzeko ixurgia bat izan ditake gisa hartarat plantatu politika kudeantzekin **akortean**. Herria

Jada errana dugun bezala 2005erainoko bakea nahi du argitu eta segurtatu Bushen "bideko sail" horrek, ONUko nazione batuen elkartearekin **akortean**. Herria

---

akoso *iz* jazarpena.

Lastima, orain **"akoso** sexuala, biolazioa" edo holako hitz zatarrik besterik ez da aditzen. Patziku Perurena

---

akotazio *iz* albo oharra, oharpena.

Etxera iritsitakoan, ordea, **akotazioak** eta azpimarrak irakurtzen hastekotan nintzela, halako har bat hasi zitzaidan barrenean zirtzika. Anjel Lertxundi

Didaskaliak, **akotazioak**, nabari-nabariak dira, eduki poetiko eta iradokitzaile handikoak. Berria - Kultura

---

akote *iz* **[Itxaro Borda]*

Akotea berriz ozkan jarri zion eta arropak eskuaz garbitu, pikotzearen enborreko onddo eta hosto eratxekiak barreiatuz. Itxaro Borda

Gizonak **akotetik** trinko lotu eta eztiki erran zion: [...]. Itxaro Borda

Edmea zutitu zen, arropari itsatsi belar idor ilatxak eskuz garbitu zituen eta ahurraz **akotea** orekatu zuen. Itxaro Borda

---

akousmata *iz* araua; agindua, manua.

Hilik gertatzen banaiz ere, demostraziook sekula betiko gal ez daitezen, gomendio utzi zizkioat, pitagorikoen **akousmaten** ereduari jarraiki, hitzez, hitz horiek ondo baino hobeto oroitzeko gai izango den kide leial bati. Jon Muñoz

Zer esan nahi digu Grosrouvrek **Akousmata** aipatzen duenean? Jon Muñoz

Bere idazlan guztiak erre ondoren Grosrouvrek bere kide leial deitzen dion horri transmititutako demostrazioen irudi ote dira **akousmatak**? Jon Muñoz

---

akrata **1** *iz* boterearen eta agintari politikoen beharra ukatzen duen pertsona. ik**anarkista**.

Konturatzen naiz jarrera batzuek bere hartan segitzen dutela beti, jarrera anarkoideak alegia, neure burua **akratatzat** jo nuen garaikoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Zu **akrata** bat zara, beno, lehen reboltoso samarra zinen, baina zure azken artikuluetan ortodoxo ikusi zaitut. Pako Aristi

Bigarrenean, aukeran ukitu **akrata** borrokazaleagoa zuen jendea, gazteagoak. Iñaki Iñurrieta

Koma bakar batek esaldi **akrata** bihurtzen du munduan den esaldirik aberkoiena (allons, enfants de la Patrie *versus* allons, enfants, de la Patrie). Anjel Lertxundi

Akrata peto-petoak ziren biak, lagunekiko zintzo eta leialak izateaz gain. Jokin Urain

2 (izenondo gisa) boterearen eta agintari politikoen beharra ukatzen duena.

Diskurtso honetako berba karismatiko errepikatuak, arima espainolaren gaixotasuna, diagnostikoa, erregenerazioa dira: Volksgeist espainola gaixo dago (petrikilo bakoitzaren arabera gaitza abulia da, atonia, anemia, indibidualismo **akrata**, bekaizkeria, etab.). Joxe Azurmendi

---

akrazia *iz* boterearen eta agintari politikoen beharra ukatzen duen politika-doktrina. ik**anarkismo**.

---

akre *iz* ingelesez mintzo diren herrialdeetako lur neurria.

Berrogeita hamar **akreko** lur zati bat dauka etxe bakoitzak inguruan, behar baino gehiago erotuta amaitzeko, esan dut neurekiko. Javi Cillero

Azkenean etxea eta hogei **akre** baino ez ziren gelditzen... Xabier Paya

Landan etxe bat daukat, bere lur eta guzti: mila eta bostehun bat **akre**, oker ez banago; baina ez nago horien beharrean nire errenta irabazteko. Antton Olano

Stanleyk azaltzen digu ehun **akre** dituela bere jabegoak, eta irudikatzen dut zein erraza izango litzatekeen etxe gehiago eraikitzea baldin eta Existentzia Hoteleko populazioa etxe nagusian sartu ahal dena baino handiagoa balitz. Oskar Arana

---

akreditatu, akredita(tu), akreditatzen **1** egiaztatu; kreditua edo ospea eman; akreditazioa izan.

200 epaile daude guztira, eta horietako 20k Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean **akreditatu** dute bigarren hizkuntza jakitea. Berria - Euskal Herria

Berez, irakasle kolaboratzaileek EHUn 200 inguru dira aurtengo irailean **akreditatu** behar zuten euren ezagutza, baina sindikatu guztiekin adostutako xedapen iragankorraren bidez, beste urte batez atzeratzea lortu zuten. Berria - Euskal Herria

Unibertsitatea **akreditatzeko** sistemak, hau da, "zerbait" unibertsitatea dela onartzeko bideak, estatu bakoitzaren esku daude, eta estatuak beregainak dira kontu hauetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

140 bat kazetari zeuden **akreditatuta** asteartean. Berria - Harian

Jardunaldi horietan parte hartu ahal izango du zinemaldian **akreditutako** nazioarteko industriako edozein kidek. Berria - Kultura

Lana lan izangatik, erosotasuna eskertzen da, eta egin behar duzun guztia gauza bat eta bakarra izaten da: **akreditatzea**. Berria - Kirola

Hautatuak atera ziren hiru legegintzaldietan HBko diputatuak, baina, **akreditatzera** baino ez ziren joan urte horietan Madrilera. Berria - Euskal Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Bertan industriako kide **akreditatuek** proiektatuko diren urteko filmak ikusi ahal izango dituzte. Berria - Kultura

---

akreditazio *iz* egiaztagiria.

Azkenengoan galdetu nion ea zenbat film zuzendu behar ziren donostiarra izanik **akreditazioa** jasotzeko. Berria - Kultura

Goizez epaimahaia, prentsa eta **akreditazioa** duten ikusleentzat mugaturik daude proiekzioak, eta arratsaldez publiko guztiari zabaltzen zaizkio. Berria - Kultura

Hura anabasa zen: ez omen zegoen gelarik jardunaldietako parte hartzaile guztientzat, nonbait, hainbat **akreditazio** falta omen zen edo oker zegoen. Jon Alonso

Etxetik hurbil, asko **akreditazio** banaketaren ordu hasierarako, 8:30etan, Baluarteko atean zeuden. Berria - Ekonomia

Hor ez dago **akreditazio** txartelik, ez eta segurtasun kontrolik. Berria - Gaiak

Foroan parte hartzeko **akreditazioak** eskuratzeko zain zeuden ekintzaileek ilara luzeak ikus zitezkeen ziren Conway Hall kalean liskarrak izan zituzten poliziekin eta azken horiek pertsona bat atxilotu egin zuten. Berria - Mundua

Hor ez dago **akreditazio** txartelik, ez eta segurtasun kontrolik. Berria - Gaiak

Etxetik hurbil, asko **akreditazio** banaketaren ordu hasierarako, 8: 30etan, Baluarteko atean zeuden. Berria - Ekonomia

---

akrezio **1** *iz* masa baten hazkundea, masa txikiagoen gehiketaren bidezkoa.

Gaur egungo kalkuluen arabera, **akrezioz** sortua da, duela lau mila milioi urte, gure Lur hau: hauts kosmikoa ale xehetan bilduko zen, aleak legarretan, eta aurki harritxo

bilakatu, gero harri gero eta koxkorrago, planeta txiki, eta, azkenean, horra hautsak llargiaren tamaina hartu eta gero Lurrarena. Juan Garzia

2 *akrezio prisma* *(corpusean ez dago; ETCn 81 agerraldi)*

Geologian, **akrezio-prisma** plaka tektoniko batek beste baten azpitik subdukzioa jasaten duenean, plaka zamalkatzailearen gainean pilatzen den sedimentu-falka da. ETC-entziklopedia

Akrezio-prisma edo akrezio tektonikoaren prisma. ETC-zientzia, zuenbidea

Jurasikoaz geroztik ez du lurralde exotikoen **akrezio-prismarik** edo akreziorik pairatu. ETC-entziklopedia

Fosa ozeanikora iristen diren sedimentuak asko badira, **akrezio-prisma** sortzen da eta fosaren kokalekua urrundu egiten da arku bolkanikotik. ETC-entziklopedia

Hor sedimentua pilatzen doa eta **akrezio prismak** sortzen dira. ETC-entziklopedia

---

akribilatu, akribila(tu), akribilatzen du *ad* zulo asko egin gauzaren batean. *irud/hed*

Sorkunde gabe, 40 urteko agure zahar bakarti bat nintzen; "arratsari" nengoen, Lauaxetak esango zukeen moduan; "lainoz **akribilatutako** bihotza" nuen golkoan, Iñigo Aranbarrik esango zukeen moduan. Juan Luis Zabala

---

akriliko 1 *izond* azido akrilikoaren polimerizaziotik sortua.

Ikuslea nire lanaren parte izan dadin nahi dut, nire lanen bidez harengana hurbildu, horregatik erabiltzen dut olioa eta ez pintura **akrilikoa**, lehen egiten nuen bezala. Berria - Kultura

2 *izond/iz* azido akrilikotik sortua; azido akrilikotik sorturiko gauza.

Eskala-problema hutsa azken batean, alegia, Jackson Pollocki, bere garai oparoenean, miniatura **akriliko** bat egitea enkargatu baliote bezala. Patxi Iturritegi

Hala zituen estudioan, **akrilikoak** lurrean eta irudiak gainean. Berria - Kultura

Metala, zura edo oihala ditu bere ekaiak; pigmento naturalekin, **akrilikoekin** edo oliodunekin du margotzen. Herria

XIX. Mendean kolorezko pintura-hodiak azaldu zirenean bezala, edo, geroago, XX. mendearen berrogeita hamarreko hamarraldian margo **akrilikoak** azaldu zirenean, eta abar). Josu Zabaleta

Pintorea zen, izerdi keruaren azpian sumatzen zituen disolbatzaile eta **akriliko** zantzuek argiro adierazten zuten bezala. Iban Zaldua

3 *azido akriliko* *(corpusean ez dago; ETCn 9 agerraldi)*

Azido akrilikoa: Isurkari koloregabea, usain sakorrekoa, uretan aise urtzen dena. Akroleina oxidatuz lortzen da. Bai **azido akrilikoa** eta bai haren eratorriak oso erraz polimerizatzen dira, eta horregatik erabiltzen dira pintura eta plastikoa egiteko. ETC-entziklopedia

Hortik abiatuta, gastrorresistentzia-propietateak dituzten zelulosa-deribatuak (zelulosa-azetoftalatoa) eta kopolimero akrilikoak (metakrilatoa / **azido akrilikoa**) garatu izan dira; gelatinarekin nahasita estaldura enterikoa eratzen dute. ETC-zientzia, zuenbidea

4 *pintura akriliko*

"Ikuslea nire lanaren parte izan dadin nahi dut, nire lanen bidez harengana hurbildu, horregatik erabiltzen dut olioa eta ez **pintura akrilikoa**, lehen egiten nuen bezala. Berria - Kultura

Helburu militar eta zibilei ateratako argazkiekin **pintura akrilikoz** eta olioz oihal gainean eginiko koadroak egin ditu, aireportu eta antzeko tokien irudi abstraktuak. Berria - Kultura

5 *zuntz akriliko* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Urtero, 200.000 tona **zuntz akriliko** baino gehiago ekoizten da Estatu Batuetan. ETC-zientzia, zuenbidea

Ehun zatia nylon-zuntzarekin edo **zuntz akrilikoekin**, propilenoarekin edo poliesterrekin egin daiteke. ETC-zientzia, zuenbidea

Zuntz akriliko: Zuntz artifizial edo sintetikoa. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **margo akrilikoak** (4)

---

akritiko *izond* kritikarik gabekoa, kritikarik onartzen ez duena.

Eta egarri horrek ekarri zuen behin baino gehiagotan modu **akritiko** batean onartzea dozena erdi lagun horiek egindako eredua bere azkeneko puntuetaraino. Pello Salaburu

Gero eta gizon-emakume **akritiko** eta neutralagoak nahi gaituzte, eta horrekin lotuta dago hori. Berria - Kultura

Merkatuak, berdin da jogurtak ala liburuak saltzerakoan, erosle asko behar ditu eta badaki bizimodu gero eta **akritikoago** batek erosle gehiago ekarriko dizkiola. Anjel Lertxundi

Gure herriaren aurpegitzat dauzkagu; horregatik, irribarre **akritiko** asko egiten dute euren agerraldietan. Pako Aristi

Ariketa osasungarria da ikustea zein diren auzo herrietan eta norberaren etxean kontzientzia **akritikoa** sendotzeko erabili izan diren zoncerak, klixe kultural eta politiko bihurtuta askotan. Iñigo Aranbarri

Mugimendu hauek, ez gutxitan, nahiagotasun **akritikoaren** edo arbuio pertsonalen araberako bihurtzen dute arrazoiaren datuen araberakoa izan beharko lukeena, gure kasuan, historiaren araberakoa. Jon Alonso

Ez naute ez batak ez besteak ikusi, eta, euria goi eta behe ari bazuen ere, Adierazpen Deskribatzaile **Akritikoa** (ADA) beste abagune egokiago baterako patrikan gorderik, parkera irten naiz. Anjel Lertxundi

---

akritikoki *adlag* modu akritikoan.

Bere ikerketaren ondorio eta helburuen gaineko hausnarketa sakon eta erreflexiboa bultzatzen ez duen jarduera batek inertzia itsuaren arriskua elikatzen du, heldutako norabideari **akritikoki** jarraituz; jarduera horrek, asko jota, erabilitako modu instrumentalen (hau da, bitartekoen) (des) egokitasuna irekiko du eztabaidara. Berria - Gaiak

---

akrobata *iz* trapezioan jauziak eta ekilibrio ariketak egiten dituen artista.

Tivoli-n **akrobata** eta artista komiko gisa aritzen zen bat. Irene Aldasoro

Agertokian bata bestearen ondotik azaltzen ziren gizonezko nahiz emakumezko abeslariak, eta batzuetan baita eskujokariak eta **akrobatak** ere. Jose Morales

Jai zoragarria izaten zen herriz herri ibiltzen ziren ijitoen etorrera umeentzat, herri xehearentzat: musika, zirkua, magia, ahuntza, pitonisa, **akrobatak**, dantzariak. Berria - Kultura

Baziren musikari eta dantzariak, aurpegia kolorez margoturik eta arropa koloretsuz jantziak; **akrobatak**, saltoka eta jauzika fisikaren legeei desafio egiten zietenak. Xabier Montoia

Gainera, ezerezetik sortutako hiri horren plaza eta auzoetan molde guztietako txerpolariak pilatzen ziren: saltinbankiak eta **akrobatak**, hurbiltzen zirenen belarriak sorgortzen beren orkestren orro eta uluekin eta beren antzezpenaren deiadarrekin; mendietatik etorritako buhameak, ikuslerik inozoenei zoria iragartzen. Karlos Zabala

Haietako bat **akrobata** ospetsua omen. Joxe Austin Arrieta

Akrobata harrigarriarena egiten ari nintzela ubideetara salto egiten nuen eta, behin batean, ongarritegi batera ere erori nintzen buruz behera. Pello Lizarralde

Motorzaleak **akrobatak** dira. Gotzon Garate

Zulaikak, aldiz, ez du uste Aguila Patruilakoak **"akrobata** inozenteak" direnik. Berria - Euskal Herria

---

akrobatiko 1 *izond* akrobaziari dagokiona, akrobaziak egiten dituena.

21 etan bururapena: erakusketa **akrobatikoak** lau moldetan (Zur gainean, zolan, saltoz, hagetan). Herria

Animazio ainitz izan da, hala nola, roller **akrobatikoa** eta slalom (sigi saga), eta Akitaniako ligako kideek kontseiluak eman dituzte. Herria

Hala, jaialdiaren inaugurazioarako *Puja Teatro de Altura* taldearen kaleko ikuskizuna aukeratu dute, dantza **akrobatikoa**, goi alturetako kirola eta musika nahasten dituena. Berria - Kultura

Melvillek ederto menperatzen dituelako arte eszenikoetako hainbat teknika, hala nola mimoa, ekintza fisiko ia **akrobatikoa**, istorioak kontatzeko trebezia agortezina eta, zalantza barik, interpretazioa. Berria - Kultura

Barandatik begira geratu ginen momentu batez, kaioen hegada **akrobatikoez** arduraturik bera eta olatuen kontaduria egiten ni. Joxean Agirre

Konpainiako sei dantzariek ikuste-efektu harrigarriak eraiki dituzte, bata bestearen atzean, goi mailako zirku batean arituko balira bezala, gorputzekin egindako simetriak edo justaposizioak maisutasun handiz erabiliz eta erabateko geldotasun uneak pirueta **akrobatiko** bilakatuz, fantasiazko lore, landare edota animaliak irudikatzeko. Berria - Kultura

Eta ni Xeto-z oroitzen nintzen, nire lehengusuaz, eta haren uso **akrobatikoez**, eta gure baratzeko mingranez, eta gure gaualdiak argitzen zituen argiaz. Juan Kruz Igerabide

Orduan, jauzi **akrobatiko** baten bidez, horrelako izen, jatorri eta ezaugarriak zituzten jendeen pentsatzeko moduarekin bat egiteko ahalegina eginez, sentituko du bere baitan ernetzen dela halako kolera, sumindura, haserre bat, esatera eramango duena, zorrotz, Errege jauna, gu ez gara hemen geldituko. Jon Alonso

Kanpoan liburu zaharren azoka bat zegoen, eta mutil talde bat zebilen bizikleta **akrobatikoekin**. Ramon Saizarbitoria

Begiak: orekaren emaitza hunkigarria, genetika **akrobatikoa** (nola zitekeen?). Lander Garro

Monboyeren koreografia **akrobatikoa** da; dantzariek eman behar dituzten jauziak airean edo, lurraren gainean eta ziztu bizian emaniko pausoak desgaste handikoak ziren. Berria - Kultura

2 *eski akrobatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

Euskaltermen Neguko Kirolen Hiztegian "eski artistiko" eta "akrobazia-eski" formak agertzen dira eta Berriaren Estilo Liburuan "**eski akrobatiko** ". ETC-entziklopedia

Kosketako eskia **eski akrobatiko** modalitate bat da, non eskiatzaileek koskaz beteriko malda malkartsu bat jaitsi behar duten, biraketa teknika, abiadura eta aireko jauziak kontuan hartzen direlarik. ETC-entziklopedia

Azken urteetan, pistak zabaldu dira eta "snow park" eta "halfpipe" bat eraiki dira, estilo libreko eskia, eski jauziak, **eski akrobatikoa** eta snowboarda praktikatzeko. ETC-entziklopedia

Alisa Camplin australiarrak ezustekoa eman zuen, **eski akrobatikoko** jauzi proba irabazita. ETC-prentsa

Misterioa eta **eski akrobatikoan** munduan dauden lau izar garrantzitsuenak dira filmaren osagaiak. ETC-prentsa

Maialen Oiartzabal oiartzuarrak senior mailako Espainiako **Eski Akrobatikoko** Txapelketa irabazi du bigarrenez, bigarren aldiz parte hartuta. ETC-prentsa

3 *eskiatzaile akrobatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Maialen Oiartzabal Mendibil (Oiartzun, Gipuzkoa, 1999ko irailaren 25a) gipuzkoar **eskiatzaile akrobatikoa** da. 2017, 2018, 2019 urteetan Espainiako Eski Akrobatiko Txapelketa irabazi zuen emakumeetan. ETC-entziklopedia

1983 - Tanner Hall, estatubatuar **eskiatzaile akrobatikoa**, "X-games" jokoetan domina gehien irabazi dituen eskiatzailea. ETC-entziklopedia

4 *gimnastika akrobatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Gimnastika akrobatikoa, akrosport bezala ere ezaguna, talde diziplina bat da, non modalitate desberdinak dauden, alegia, gizonezkoen bikotea, emakumezkoen bikotea, bikote mistoa, emakumezkoen hirukotea eta gizonezkoen laukotea. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **uso akrobatikoak** (3)

---

akrobazia 1 *iz* sokan, trapezioan edo kidekoetan jauziak eta ariketa arriskutsuak egiteko antzea.

Haurrek ikusiko zuten nire **akrobazia**, inguruan bazebiltzan. Harkaitz Cano

Jaiki, txerpolari batek baino **akrobazia** gehiago eginez dutxatu, jantzi, gosaldu eta kalera irten naiz zortzi eta erdietako kanpaiak hasi diren puntuan. Anjel Lertxundi

Malabarismoa, **akrobazia** eta umorea dira Mr Frack lanaren osagaietako batzuk, baita ikusleen parte hartzea bilatzea ere. Berria - Kultura

Akrobaziak, malabareak, hankapaluak, monozikloa eta zirkoko beste hainbat teknikak uztartzen ditu Kapikuaren lehen ekoizpenak. Berria - Kultura

Akrobaziak eta eski alpinoa uztartzen ditu eski artistikoak, eta esparru horretan Euskal Herriak badu zer erranik. Berria - Kirola

Soldadu haiek, sable biluzia esku batean, pistola luzea bestean, **akrobazietan** aritzen ziren, eta, batera, sekulako burrunba egiten zuten airean, eztanda eta tiro zaratatsuak etengabe boteaz, danborren arrada, daireen orroa eta dutaren kurrinka itzaltzeraino. Karlos Zabala

Gauza jakina da gure organismo lurtar astun honek abilezia sinestezinak beregana ditzakeela ariketa bidez, musika tresnak jotzeko, **akrobaziak** egiteko eta era horretako hainbat ikuskizun prestatzeko. Imanol Unzurrunzaga

Bezero baten kredituarekin **akrobaziak** egiten itzuli da bere onera, telefono bitarteko ahotsei agindutxoak ematen. Eider Rodriguez

Ideia ere eman dizu: sos batzuk irabaz ditzakezu horrelako **akrobaziak** eginez..., neurri horretako kontortsionistak, Houdini berriak, ez dira-eta eguneroko gauza. Iñigo Aranbarri

Berrikiago, medikuek deskribatu dituzte gorputz-trebetasun harrigarrien jabe diren idiot savant zenbait, erraztasunik handienaz **akrobazia** eta marka atletiko izugarriak egiteko gauza direnak, "kasu hartan ere inolako entrenamendu formalik gabe". Xabier Olarra

Belarriak daukan kontrol- eta egonkortze-mekanismo landu hori gabe, zail genuke zutik egotea edo ibiltzea, eta ezingo ginateke eskaileretan gora eta behera korrika ibili, ez eta beste hainbat gauza arrunt egin ere, ezpada (ingeniaritzaren ikuspuntutik) **akrobaziazko** balentria zailak eginez. Irene Aldasoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gozoa da arratsaldea, gereziondoak loretan daude; zozabarren saldoek plazako zeru hodeirik gabea edertzen dute beren **akrobazia** alaiekin, Messerschmitt hegazkinen gisara. Anjel Lertxundi

Aireko **akrobaziak** Gasteizko jaietan. Berria - Euskal Herria

Hori, giza eskalan, **akrobazia** ironiko bat da, txerpolari-txantxa bat, guztiahalduntasun-larderiazko erakuskeria ulertezin bat, zeren airearen zikinkeria beti berritu horretatik baikatoz gu: gu animaliok eta gu landareok, eta gu giza espezie hau, gure lau mila milioi iritzi adosgaitzekin, milaurte luzeetako gure historiarekin, gure gerra eta [...]. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Frantziako Armadako **akrobazia** hegazkinek ke gorri, zuri eta urdina zabaldu zuten airean. Berria - Gaiak

Espainiako Aire Armadako Aguila aire patruilak **akrobazia** saioa egingo du Gasteizen Andra Mari Zuriaren jaietan. Berria - Euskal Herria

Badu, bai, **akrobazia** puntu bat, malgutasun estilistiko eta formal bat, goi-mailako soinketarien ezpaleko egiten nauena. gero Lindak bi edo hiru itzulipurdi egin eta gorriz jantzitako tximu txiki bat zekarrela agertu zen, **akrobazia** -ariketa batzuk egitera behartu zuena. Karlos Linazasoro

-Ekilibrista naiz -esan zuen bere kalpar usua orraztu bitartean burua atzeraka eramanez-, gerra aurretik **"akrobazia** ikuskizun saila" egiten genuen. Fernando Rey

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

30 artistak aire **akrobaziak** eskainiko dituzte. Berria - Kultura

5 irud/hed

Hots, **akrobazia** gutxiko filma da Omagh; zuzena eta egiatia. Berria - Kultura

6 ***aire akrobazia***

Baina gauza handirik ez: hainbat ezkontza, hainbat jaunartze, zirkua birritan (Circo Universal, Circo Ringling) eta **aire-akrobaziak** urte batean (1931n). Unai Elorriaga

30 artistak **aire akrobaziak** eskainiko dituzte. Berria - Kultura

7 ***akrobaziazko eski*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Akrobaziazko eskia eski alpetarraren modalitate bat da, non eskiatzaileek saltoak eta trukoak egin behar dituzten. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akrobazia eta** (4); **akrobazia saioa** (3); **akrobaziak egiten** (3); **armadako akrobazia** (3)

---

akromatiko **1** *izond* kolorerik ez duena.

Aurrekoaren kontrako ezaugarriak ditu: makilak dira nagusi, pertzepzioa **akromatikoa** da, zolitasun gutxikoa, eta, oso ilun denean batez ere, erretinaren periferiaz baliatzen da. Josu Zabaleta

Horrexek erakusten du ederki nola irudiak konbentzio bidez irudikatzen duen errealitatea, gizartean onargarri denari baitagokio konbentzioa (kasu honetan koloreari uko egitea, hain zuzen: Lumière Zinematografoaren lehenengo ikusleen artean, esate baterako, inork ere ez zuen kexurik izan irudia **akromatikoa** zelako). Josu Zabaleta

2 ***ardatz akromatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Ardatz akromatikoak eukariotoetan zelula zatitzera doanean kromosometako kromatida ahizpak zelula alabetan banatzeko zitoeskeletoko egiturari egiten dio erreferentzia. ETC-entziklopedia

---

akromatopsia *iz* ikusmenaren eritasuna, kolore zuria, grisa eta beltza bakarrik ikustean datzana.

I.jaunaren **akromatopsia**, hiru hilabeteren buruan ere, erabatekoa zen, eta hondamen iraunkorrak zituen kontraste-ikusmenean. Xabier Olarra

Garuneko lesioren batek eragindako koloreekiko itsutasun erabatekoa, garuneko **akromatopsia** deritzona, duela hiru mendetik gora deskribatua, egoera ez-ohiko eta larria da oraindik ere. Xabier Olarra

Handik lau urtera, Louis Verrey oftalmologo suitzarrak frogatu zuen lehenbizikoz garuneko alde jakin batzuen lesioak sor zezakeela **akromatopsia** (eta are hemi-**akromatopsia**). Xabier Olarra

Ez baldin bazegoen kolorearen gune bereizirik -hala arrazoitzen zuten Verreyren aurkakoek-, **akromatopsia** bakarturik ere ezin izan; hala, Verreyren kasua, eta 1890etako antzeko beste bi, baztertu egin ziren neurologoen buruetatik, eta garuneko **akromatopsia** ez zuen ia inork ikergaitarako hartu hurrengo hirurogeita hamabost urteetan. Xabier Olarra

Esan geniezaiokeen, bada, puntu hartara iritsirik, bazuela problema bat benetakoa: egiazko **akromatopsia** zuela, alegia, eta ez histeria. Xabier Olarra

1973ko azterlanaren ondoren, hasi ziren berriro agertzen, medikuntzako literaturan, giza **akromatopsiaren** kasu gehiago. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **garuneko akromatopsia** (5)

---

akromatopsiko *izond* akromatopsia duena.

Horraino egindako testek eta azterketa neurologiko orokor batek, hala ere, berretsi zuten erabat **akromatopsikoa** zela I. jauna. Xabier Olarra

---

akromegalia *(corpusean ez dago; ETCn **106** agerraldi)* *iz* hazkuntza-hormonaren gehiegizko presentziak eragindako gaixotasuna.

Sanchezen esanetan, XIX. mendean interes handia zegoen **akromegalia** gaitza zutenekin, batik bat anatomista antropologoen artean, uste baitzuten gizakiaren jatorriari edo nondik norakoei buruzko informazioa eman zezaketela. ETC-prentsa

Baina XIX. mende hartako Altzon, 20 bat urte zituela, **akromegalia** moduren batek erasandako gazteak ez zuen etorkizun oparorik; batik bat, gaitzak lanerako ahul utzi zuela kontuan hartuta. ETC-prentsa

Uztailaren 1etik aurrera, **akromegalia** gaitzaren ondorioz izugarri hazi zen Migel Joakin Eleizegiren irudiak eta tresnak izango dira ikusgai. ETC-prentsa

Gainera, **akromegalia** dutenek asko sufritzen dute hezurrengatik. ETC-prentsa

Helduetan somatotropina gehiegi jariatzeak **akromegalia** eragin dezake, hots, aurpegiko hezurrak loditzearen ondorioz aurpegiera itsustea dakarren gaitza. ETC-zientzia, zuzenbidea

Puerperioan esne-jariakina kentzeko erabiltzen da, baita hormonak ekoizten dituzten adenoma hipofisarioak (prolaktinomak, **akromegalia**), galaktorrea eta Parkinsonen gaixotasuna tratatzeko ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zelula somatotrofoen gaiztotzearen ondorioz sortzen diren tumoreek GH hormona jariatzen dute kopuru handietan eta umeetan ematen denean erraldoitasuna ematen da eta nagusietan **akromegalia**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Akromegalia hipofisi guruinaren gehiegizko jardueraren ondorioz sortutako gaixotasuna da, gaixoengan hazkuntza handia eragiten duena.[ETC-entziklopedia¬Altzo, Wikipedia]20 urterekin **akromegalia** gaixotasunaren ondorioz berriro hazten hasi eta 43 urterekin hil zen arte hazten jarraitu zuen. ETC-entziklopedia

Neolitikoko gizakien gorpuzkinetan diagnostikatutako patologien barruan sar daitezke akondroplasia bezalako anomalia kongenitoak, gaixotasun endokrinoak (gigantismoa, enanismoa, **akromegalia**, gota), gaixotasun degeneratiboak (artritisa, espondilosia), eta baita zenbait tumore ere (osteosarkomak), hezur hondarretan identifikatuak nagusiki. ETC-entziklopedia

---

akronia *iz* zernahi gertakari denbora kontuan hartu gabe aztertzea.

Akronia: elikatzeari ez zaio aitortuko ordutegi jakin batean egin behar dela. Edorta Agirre

---

akronimo **1** *iz* hitz multzo baten lehen letra edo silabekin osaturiko hitza.

Eta hargin masoiek harrian idazten zituzten hitzak beti mezu ezkutuak idazteko **akronimoak** omen zirenez, idazleak bilatutako Amaia hark ere **akronimo** bat behar zuela izan. Anjel Lertxundi

Siglak eta **akronimoak**: AEB, EAE. Iñaki Arranz

Letren konbinazio berezi bat, ezohikoa, izaten da abiapuntua sigla eta **akronimo** gehienetan, eta izen bihurtzerainoko bilakaera ahalezko helmuga. Iñaki Arranz

Hitzak luzatzeko prozedurez ari garela, kontrako bidea egin dezakegu: **akronimo** edo dena delako sigla bat hartuta, letrek ordezkatzen dituzten hitzak osatu beharrean, asmatzea da jokoa, atzekoz aurrera, egiantza bilatzeko inolako xederik gabe, asmo ludiko batek horretaratua. Iñaki Arranz

Halaber **akronimo** baten gainean sortutako hitz eratorri hauek ere: etakidea, hiesduna... Iñaki Arranz

2 ***akronimo errepikatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Akronimo errepikatua da akronimoarekin batera haren osagai den hitzetako bat edo gehiago erabiltzea. Adibidez, "EAJ alderdia" esaten denean, "Eusko Alderdi Jeltzalea alderdia" esaten da, "alderdi" hitza errepikatuta. Okertzat jotzen da **akronimo errepikatuak** erabiltzea. ETC-entziklopedia

---

akropoli *(orobat **akropolis**)* *iz* antzinako greziar hirietan, gain batean zegoen gotorlekua, jauregi bat eta santutegiak zeuzkana.

Greziako talde paganoek gutxienez 2.000 kide dituztela diote, eta, esaterako, **akropolia** gurtza leku gisa erabiltzeko eskubidea aldarrikatzen dute. Berria - Gaiak

Hori baino lehenago, K.a. 437an Atenasko **Akropoliaren** sarrera diseinatu zuen arkitektoa ederki asko konturatu zen horretarako erabili ohi ziren marmol-blokeak -esate baterako, hangoxe Partenoikoak- ez zirela behar bezain sendoak 8 oin (2,5 m inguru) baino gehiagoko zabalera hartzeko. Irene Aldasoro

Flaminio zirkuko Kastorren tenpluaren estiloko lehenengo tenpluak Palas Minerbarenak izan ziren, Atenasko **akropolian** dagoena bata eta Atikako Sunion mendian dagoena bestea. Santiago Iruretagoiena

---

akrosomiko *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi)* *izond* espermatozoidearen buruan dagoen gordailuari dagokiona.

Deskribapena errazte aldera, hiru fasetan zatitzen da prozesua: Golgi fasea, fase **akrosomikoa** eta heltze-fasea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beta-endorfinaren eragina giza espermatozoideen erreakzio **akrosomikoan**, I. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horien artean, kapazitazioa, hiperaktibazioa, eta erreakzio **akrosomikoa** (Schuel et al. ETC-zientzia, zuzenbidea

Fusionatzen dira besikula **akrosomikoa** emanez. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

akrostiko **1** *iz* poesia konposizioa, non lerro bakoitzeko lehen letrak berkikalki irakurriz hitz edo esaldi bat osatzen baita.

Lerroen hasierako hizkiek bertikalean izen bat, hitz bat edo esaldi bat osatzen dute **akrostikoetan**. Iñaki Arranz

Poesiak eskaintzen du bereziki, bere lerro neurtuetan, **akrostikoetarako** parada egokia. Iñaki Arranz

Euskaraz ezagutzen dugun lehen **akrostikoa** XVII. mendekoa da. Iñaki Arranz

Horrela, Carmichael jaunak ihes egiten zionean, orduantxe bezala, izkinen batera joanda etengabe **akrostikoak** egitera, bere sena bazterturik sentitzeaz gain, antzematen zuen bere baitako alderdi batzuk kaxkarrak zirela, eta giza harremanak ere beren onenean okerrak zirela, ziztrinak, berekoiak. Anton Garikano

2 (izenondo gisa)

Euskaraz ezagutzen dugun lehen **akrostikoa** XVII. mendekoa da. Iñaki Arranz

---

akroteria *iz* frontoi baten angeluetan ezartzen diren zutoin edo idulkiak.

Kolomen kapitelen gainean joango diren elementu guztiak, hau da, arkitrabe, friso, erlaitz, tinpano, frontoi, **akroteriak**, altueraren hamabiren bateko inklinazioarekin egin behar dira. Santiago Iruretagoiena

Ikusten da leku horiek abantaila handiak izaten dituztela baldin eta, berez, lekuaren aldetik ondo kokatuta badaude, eta kanpora ateratako **akroteria** edo muinoak badituzte, eta horien babesean itsas golkoak eta kalak baldin badituzte, lekuan bertan berez antolatuta. Santiago Iruretagoiena

Angeluetako **akroteriak** tinpanoak erdian duen altueraren neurrikoak egin behar dira, eta erdikoak, berriz, angeluetakoak baino zortziren bat altuagoak. Santiago Iruretagoiena

---

aksionman *iz* jostailu baten izena.

Hartu genituen **aksionmanak** eta aritu ginen patioan, izkinan, andereñoek-eta ez entzuteko. Alberto Barandiaren

Eta euskaraz hasi zitzaidan, eta gero haserretu egin zen **aksionmanarekin** ari nintzelako, eta begiratzeko esaten zidan. Alberto Barandiaren

---

akta **1** *iz* gertatu edo esan dena jasotzen duen agiria.

Bere lan garrantzitsuena da Udalean sortzen diren **akten** eta agirien fedea ematea, alegia, hori horrela dela ziurtatzea. Berria - Euskal Herria

Baina aitzinekoak ere ez zitezkeen denak erre, zeren eta agertzen baita 1849ko ageri bat, gure Luzaideko markesaren bataiarriko **akta**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Apaingarria eta lilura erauzi, eta, notario soraio antzo, **akta** jaso egiten du Otamendik. Markos Zapiain

Salaketa **aktarekin** batera, medikuaren agiria eta X izpien emaitza helarazi zuen. Berria - Euskal Herria

Borreroak kondenatuek oihukatzen dituzten aldarri guztiak **aktan** jasotzen ditu, hoben egin duten ala ez delibera dezaten. Karlos Linazasoro

Gai zerrenda: azken **aktaren** irakurketa. Monika Etxebarria

Baina hori hala ageri da Inkisizioaren **aktetan**, eta baita beste kronika batean ere. Berria - Kultura

Beraz, ez zuen **akta** ontzat ematea beste erremediorik izan, laburra izateaz gainera, okerren bat bazuen arren. Ramon Saizarbitoria

Ondoren, berriro elkartzen omen ziren bi batzarretako **aktak** irakurri eta konparatzeko, eta orduantxe hartzen zuten erabakia. Bernardo Atxaga

Aktak-eta erdaraz egiten ditugu, bandoak ele bitan, eta eskutitzak jasotzailearen arabera. Berria - Euskal Herria

Euskal Konfederazioak egiten ditu proposamenak, euskararen erabilpena garatzeko: **akta** zibilak euskaraz, bilkuretan euskaraz ere mintzatzea, txostenak euskaraz ere egitea... Herria

Haiek epailearen **aktako** ekintzak aztertzen dituzte, eta araudia erabiltzen dute. Berria - Kirola

2 *iz* kargu publiko baten ziurtagiria.

Mendizabalek ziurtatua du diputatu **akta**, eta beste biek aukera handia dute. Berria - Euskal Herria

HB bake eta negoziazio proposamen batekin etorri zen, eta diputatu **akta** sinatzerako atentatua egin zuten. Berria - Euskal Herria

3 ***akta egin***

LABen arabera, CCOOk eta UGTk «langileen bizkar» hitzartu dute ituna, eta pauso horrekin «negoziazio kolektiboaren heriotza **akta egin** dute» Berria - Ekonomia

Eta laster, hilabete batzuk barru, okupazio **akta egingo** dugu Berria - Euskal Herria

Eta geltokiko burua eskaka behin eta berriz utz ziezaiotela arropaz aldatzen, behin eta berriz esaka bazuela beste lanjantzi bat garbia, baina Slu?sn´y zerbitzuburuak ez zion utzi, geltokiko buruak **akta egin** behar baitzuen. Fernando Rey

4 ***akta jaso***

Goizean jaikitzean, gotzainak lagunei kontatu zien ikusitakoa eta, notario bati deituz, Frantziskoren heriotzako egunaren eta orduaren **akta** jaso zuen. Askoren artean

Testuinguru honetan, Naturarekiko gure jarrera egiteko hone-tara moldatu beharko genuke: behar bezalako hileta kontzeptual eta praktikoa bultzatu, haren heriotza **akta** behingoz jaso. Berria - Gaiak

Akta bat jasoiok "usufrutuaz" edo heuri bururuatzen zaianaz salatuz. Juan Garzia

5 *akta liburu* *iz*

Caracasko Liburu Zaharraren azokan topatu zuen Xurxo Martinez CIGko Immigrazio Saileko arduradunak Venezuelako EAJren Immigrazio Batzordearen **akta liburua**. Berria - Kultura

6 *akta notarial* *iz* ik **akta 8**.

Hala ere, edo horregatixe, **akta notarial** batzuk izan gabe, oharpen eta informazio jakingarriz beteriko, euskal historiaren eta gizartearen lekukotza paregabeak utzi dizkigute mota diferenteenetako bidaiariok. Koldo Izagirre

7 *aktan jaso*

-Jaso dadila **aktan** nire protesta. Koldo Izagirre

Juanitoren osabak, lotsatuta, ez zeukala erantzun zuen, eta Bandresek orduan, harro, zera esan omen zion juezari: **aktan** jasota gera dadila, eta ondoren, sei urte eta egun bat eskatzen zituela alkatearentzat armak legez kanpo edukitzeagatik. Rafa Egiguren

- Epaile jauna, gurako nuke idazkariak **aktan** behar bezala jaso dezan ez naizela ni izan, aurrean dudan emakume hau baizik, memento honetako giro erroma Josu Landa

Badut eragozpenik Lurie jaunak emandako erantzun hauen aurka, eta **aktan** jasotzea nahi dut; izan ere, erantzunok, funtsean, ihesbideak direla iruditzen zait.ntikoa hautsi duena! Oskar Arana

Hala balitz, gainera, **aktan** jasota egongo litzatekeela. Berria - Euskal Herria

8 *notario akta* *iz* ik **akta 6**.

Iparraldeko XVIII. mendeko **notario aktak** ikertu ditu Paueko artxibategian. Herria

"Derrigorrez behar duzuna **notario akta** da" esan zion Udaletxeko neskak. Ramon Saizarbitoria

Orain arte ezagutzen ditugun dokumentuek: eliza, herriko etxe, **notario aktak**, etxe-zerrendek edo legeek erakusten dute ez dutela deus ikustekorik historikoki buhamek eta agoteek. Herria

9 *akusazio akta* *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

Hasieran, abokatuek fiskalaren **akusazio akta** atzera botatzea lortu zuten. ETC-literatura, saiakera

Ez dago lekukoen deklaraziorik, ezta **akusazio-aktarik** ere. ETC-literatura, saiakera

Manu Leginetxe azken hamarkadetako gerren kronista bizkaitarraren hitzetan, "haurrak krudelkeriaren protagonistak dira, gero eta basatiagoa den munduaren aurkako **akusazio akta**". ETC-prentsa

Tortura lazgarrien berri ere ematen du **akusazio aktak**. ETC-prentsa

Kroaziako gerran, hango biztanleei eginiko jazarpenetan 200 zibil baino gehiago hil zituzten, **akusazio aktaren** arabera, eta egoera jasangaitzean atxiloketa ugari ere egin zituzten. ETC-prentsa

Izan ere, **akusazio aktan** leporatzen dizkieten delituetan ez dago atentatu, arma edo lehergailu, edota bestelako indarkeria ekintzei buruzko aipamen bakar bat ere. ETC-prentsa

Krimenaren arrazoiei dagokienez, Politkovskaiak argitaraturiko hainbat artikuluri egiten die erreferentzia **akusazio aktak**. ETC-prentsa

Erakundeko batzorde berezi batek egin du **akusazio akta**, eta iritzi kontrajarriak sorrarazi ditu Beiruten. ETC-prentsa

Horretarako, berau sinatzen duenak uste du Fiskaltzari, edo, hala izanez gero, akusatzaile partikularrari bakarrik dagokiola, **akusazio-akta** eratzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)**
>
> **akta bat** (6); **akta baten** (2); **akta egin** (4); **akta hau** (2); **akta horiek** (2); **akta horien** (2); **akta hura** (2); **akta jaso** (5); **akta jasotzen** (2); **akta liburua** (2); **akta ofizialak** (2); **akta sinatu** (2); **akta zibilak** (2); **akusazioaren akta** (2); **batzordearen akta liburua** (2)
>
> **diputatu akta** (4); **heriotza akta** (2); **immigrazio batzordearen akta** (2); **notario akta** (3); **zuen akta** (2); **zuinketa akta** (2)
>
> **aberri batzarreko aktak** (2)
>
> **aktan jaso** (4); **aktan jasota** (4); **aktan jasotzea** (2); **aktan jasotzea nahi** (2); **aktan jasotzeko** (2); **aktan jasotzeko eskatu** (2); **aktan jasotzen** (2); **deklarazioaren aktan jasota** (2)
>
> **aktaren irakurketa** (2)

---

aktibarazi, aktibaraz(i), aktibarazten du *ad* aktibatzera behartu.

Pentsatzean berean, berregituratze ideologikoak **aktibaraziz** bihotza uxkail zezakeena. Itxaro Borda

---

aktibatu, aktiba(tu), aktibatzen **1** du *ad* abiarazi; eraginkor egin, martxan jarri.

Bizkarrean hazka egitea ere oso atsegina da, odol zirkulazioa berehala **aktibatzen** baita. Luis Elberdin

Zein mekanismo-klase **aktibatzen** dira pertsonaia historiko bat pertsonaia mitiko bihurtzen denean, zer gertatu zen Garibai ez zerurako ez infernurako gera zedin? Anjel Lertxundi

Kontua da nola **aktibatzen** diren geneak. Pello Salaburu

Sortzaile sare bat **aktibatu** nahi du Lankuk. Berria - Kultura

Ozentasun ertaineko soinu batek, 1.000 Hz-eko maiztasunean, 7.000 nerbio-zuntz inguru **aktibatuko** ditu. Irene Aldasoro

Teknika horrekin frogatu dute molekula baten eraginez **aktibatutako** usaimen errezeptore bakoitzak proteina bat **aktibatzen** duela garunean. Berria - Gaiak

Fosfato bat gehituz beste proteina batzuk **aktibatzen** dituzten entzimen "etengailu" antzekoak dira kinasak. Berria - Gaiak

Proteina arrotza gorputzaren barnean agertzen denean baino ez da **aktibatzen** inbasioaren aurkako defentsa. Irene Aldasoro

Genero epidiktikoa da arte literarioaren baliabide guztiak **aktibatzen** dituen bakarra, entzuleriarekiko atxikimendua lortzea izaki xede nagusia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Garuna **aktibatzeko**, kolesterola ezabatzeko edo zahartasuna uxatzeko gaitasunaren arabera aukeratuko dugu jana. Edorta Agirre

Nazionalismo demokratiko deitutakoaren oinarri soziala eta bere pentsamendu-zorua ez da gai euskal herriaren garapenak behar duen energia soziala **aktibatzeko**, ezintasun estrukturala dauka bere baitan. Txema Ramirez de la Piscina

Auto-Open funtzioa **aktibatuz** gero, poltsak daramatzagunean automatikoki zabalduko zaizkigu ateak. Iñigo Aranbarri

Bonbak distantziara **aktibatzen** dituzten aparatuak baliogabetzeko. Pako Aristi

Segurtasun sistema pasibo bat asmatu eta patentatu egin du, talka gertatuz gero **aktibatzen** dena. Berria - Ekonomia

Zilindro batzuk **aktibatuta** eta beste batzuk **aktibatu** gabe utzita erregulatuko balitz, tiraka eta astinduka ibiliko litzateke automobilaren motorra, baina, muskuluen kasuan, oso kontrol-sistema egokia da hori. Irene Aldasoro

2 (era burutua izenondo gisa)

Ur biltegietan ikatz **aktibatuzko** iragazkiak jarriko dituzte arazoa konpontzeko. Berria - Euskal Herria

3 *ikatz aktibatu*

Ur biltegietan **ikatz aktibatuzko** iragazkiak jarriko dituzte arazoa konpontzeko. Berria - Euskal Herria

4 *konplexu aktibatu* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Trantsizio-egoeraren teoriaren arabera, C? konplexu aktibatuaren bidez gertatzen da erreakzioa, eta **konplexu aktibatu** horrek k?C? abiaduran ekoizten du C. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egoera horretan aurkitzen diren molekulak konplexuak dira eta **konplexu aktibatu** moduan ezagutzen dira, hausten ari diren loturen eta osatzen ari diren berrien artean aurkitzen diren molekula ezegonkorrak direlarik. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aktibatu nahi** (3); **aktibatu zuen** (3); **aktibatzen dira** (3); **berriro aktibatu** (3)

---

aktibatzaile *izond* aktibatzen duena.

Hasieran, partaide izan nintzen ni lan horretan, noiz eta agertu baitzen kiribil erregulatzaileetako proteinek, eragozle zein **aktibatzaile** izan, tasun alosterikoak zituztela. Juan Garzia

---

aktibazio **1** *iz* aktibatzea.

Hemendik aurrera funtsezkoa izango da etorkizunaren jabe izan nahi duten eragile eta herritarren **aktibazioa**, Gazteen **aktibazioa** eta parte-hartzea bultzatzen dira; instituzioek, aldiz, desaktibazioa bilatzen dute. Berria - Harian

Ez da baztertu behar Beste Europa bat posible da goiburuaren aldeko indarren **aktibazioak** beste korapilo batzuk askatzeko lagundu ahal izatea. Berria - Euskal Herria

Aurrera begira, iritzia sortzeko orduan Estatuaren aldeko desoreka nabarmena dagoenez, ezker abertzaleak inplikatu egin behar du gizartearen **aktibazioan**, euskal gizartea bera izan dadin prozesuaren protagonista, Fusio-erreakzioan isurtzen diren neutroiek sortutako errradiaktibitatea, bestalde, **aktibazio** baxuko materialak erabilita konpon daiteke. Berria - Harian

2 *aktibazio energia* *(corpusean ez dago; ETCn **276** agerraldi)*

Aktibazio energia erreakzio kimiko bat gerta dadin behar den hasierako energia da. Katalizatzaileek **aktibazio energia** jaisten dute. ETC-entziklopedia

Horrek energia-gastu bat eskatzen du, eta energia horri **aktibazio-energia** esaten zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Botikaren disoluzioa zenbait tenperaturatan gorde behar da, degradazio-erreakzioaren **aktibazio-energiak** kalkulatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala eta guztiz ere, oso mantso gertatzen da, energia altuko trantsizio-egoera eta **aktibazio-energia** altua dituelako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eskuarki, lotura estuak elektroi-transferentziaren ondorioz gertatzen dira, eta, horretarako, **aktibazio-energia** (berokuntza) behar izaten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erraz bereizi ohi dira adsortzio fisikoa eta kimisortzioa: kimisortzioak **aktibazio-energia** handia behar du desortzio-urratsean, edo, beste era batera esanda, abiadura motelagoa du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nolanahi ere, N2-tik eta H2-tik NH3 industrialki sortzea endergonikoa da, eta energia-sarrera handia behar du N2-ko lotura hirukoitza apurtzeko behar den **aktibazio-energia** dela eta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Katalizatzaileek erreakzioaren abiadura azkartzen dute, **aktibazio-energia** txikitzen dutelako. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aktibismo *iz* ekintzale gisa aritzen den pertsonaren jarduna.

Inor ez dadila ausart Jainkoaren seme-alabak oharkabetzen **aktibismoaren** zorabiora eramanez edota multiplizitatean sartuz praktika arrunten zama astunegiaz eta kanpoko egintzez. Joan Mari Lekuona

Ez ditzagun euskararen militanteak epe motzeko zereginetan erre, gaztetako urte gutxi batzuetan **aktibismoaren** bide antzuetan antzutu. Berria - Euskal Herria

Aktibismoaren aurka zegoen talde berria. Joseba Zulaika

Zelula gorrien uztez, or-dura arteko praktika politikoa "ideologia burges txikiaren esanetara zegoen, eta nazionalismoan, **aktibismoan** eta boluntarismoan hartzen zuen oinarri". Rafa Egiguren

"Aktibismo berria", horixe da beren apustua, nahasmenetik sortutako lengoaia berria. Txema Ramirez de la Piscina

Gizarte-mugimenduetan, auzunetan, okupatutako lantokietan **aktibismo** militante harrigarria sumatzen da. Txema Ramirez de la Piscina

Aktibismo mota hau arriskutsua da; ez da doan ateratzen. Txema Ramirez de la Piscina

Gerra ondoren seminarioetan eta euskal **aktibismo** guneetan jaso genuen euskal kultura neurri handi batean kultura elegiakoa zen. Joseba Zulaika

Kale **aktibismoan** sinesten dugu, hori da lanerako dugun filosofia. Berria - Kultura

Artea eta feminismoa lotzen ditu Erreakzioa taldeak, "kultur eta **aktibismo** sorkuntzarako espazioa izan zedin" sorturikoak.Neologismo hau (arte **aktibismoa**) Internet sarean hasi zen erabiltzen 1994an. Berria - Kultura

---

aktibista *iz* ekintzailea.

Simone Weil sindikalista iraultzailea eta marxista kritikoa zen, Espainiako gerra zibilean milizianoa, borroka proletarioan **aktibista** eta nazismoaren biktima. Joxe Azurmendi

New Age mugimendua Ronald Reaganek presidentetza hartu zuen garaian sortu zen, 60ko urteetako Ameriketako kontrakulturako kideen artean, zahartzen hasiak ziren **aktibistak** mobilizatzeko eta nagusitzen hasia zen kontserbadurismo politikorako joerari aurre egiteko. Berria - Gaiak

Aktibista izateak onurak ekar diezazkioke zuk hartu berri duzun karguari? Berria - Euskal Herria

Aktibista sutsuak dira hiru emakumeak. Berria - Harian

Bertan gaur egunean kazetari den eta lehenago **aktibista** klandestino izandako emakume baten bizitza erakusten digu zuzendariak. Berria - Kultura

Gay **aktibista** izateak eman didan aktiboa baliatuko dut bazterketen aurka aritzeko. Berria - Euskal Herria

---

aktibitate **1** *iz* jarduera, jarduna.

Bi garabi berri ezarri dituzte ADAn eta horrek **aktibitatea** garatuko duela uste du. Berria - Ekonomia

Hizkuntza, beraz, giza jakintzaren eta **aktibitatearen** alor guztietan aurkitzen dugu. Askoren artean

Gorputza ezagutzeko, **aktibitateen** kontrola hobetzeko, aktorearen eta espazioaren arteko harremana sendotzeko eta gorputzaren eta ahotsaren arteko lotura sakontzeko. Berria - Kultura

Urte baten **aktibitateen** bilduma egin da, hor ziren pilotari, arduradun eta hautetsiren aintzinean. Herria

Aktibitatearekiko harremanaren araberako biztanleen inkesta. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gakoa da lana, langabezia eta **aktibitatea** nola definitzen diren. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Haatik, egoitzaren jabearekin, "La Toulousaine" etxearekin, mementoko konponbide bat aurkitzekotan da elkartea, bere **aktibitateak** aitzina jarraiki ditzan, erosle berria jin artio. Herria

Berantegi baitzen euskarazko lan postu baten galdatzeko, halere ttipienekin euskaraz egiten dituzte **aktibitate** batzu. Herria

Oraindik ez naiz abiatu eta jadanik erdi beteta daukat Palm Pilot berria izenez eta **aktibitatez**. Javi Cillero

Elektrorretinogramak, argiz estimulatutakoan zer jarduera elektriko dagoen jasotzeko diseinatuak, erabat lauak ziren, eta ikusmenera bideratutako potentzialek, berriz -

garuneko ikusmen-aldeetako jarduera erakusten duten grafikoek erakutsiak-, **aktibitaterik** ez zegoela adierazten zuten. Xabier Olarra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Beste arazo handi bat hondakin erradiaktiboak dira; batez ere **aktibitate** handikoak, milaka urteetan luza daitekeen arriskua eragiten dute. Berria - Euskal Herria

Molloyk, beste **aktibitate** aipagarri batzuen artean, aldian-aldian bere amari bisita egiten zion. Pablo Sastre

Zifra horiek, gehienean erretiroaren garaiarekin lotzen badira ere, Schumacherren kasuan, **aktibitate** bizi-biziaren erakusgarri dira. Berria - Kirola

Atseden soiltzat dauka nork aisia; halakok, berriz, dibertimendua beste deus bilatzen ez duen orduen gurpiltzat; urliak, denbora-pasa ahalik arinentzat; auzoak, **aktibitate** sukartsuarekin erretzen den soberakintzat. Anjel Lertxundi

Nire laguna aldizkariarena baino **aktibitate** arriskutsuagoen sustatzaile ere bazen. Anjel Lertxundi

Aktibitate ekonomiko dinamikorik ez litekeela, kitzika morala eta errentabilitatearen ezpatak hertsatu langilegoak zainak akuilatzen dituzten antidepresiboak ausarki eta deblauki klikatzen ez balitu. Berria - Kultura

Aktibitate interaktiboetan jarri nahi dute indarra antolatzaileek. Berria - Kultura

Garai hartan gertatu zen Alderdi Komunistaren legeztatzea, Francoren heriotza, Gernikako estatutua, Konstituzioa, ikurrina legeztatzea, ETAren **aktibitate** militar ikaragarria, euskal kultura berpiztea. Ana Urkiza

Aktibitate paramilitar oro bukatzeko beharra dago, baita paramilitarrak egutegi goiztiar batean eta konbentzitzeko moduan desarmatzeko ere. Berria - Mundua

Nafarroa iparraldea **aktibitate** sismiko handiko eremua da. Berria - Euskal Herria

Zentro barruko jarduerez gain, bestelako **aktibitateak** ere egiten dituzte kalean. Berria - Euskal Herria

Baina horren ondoan lekuko **aktibitate** bat izan behar da. Berria - Kultura

Eskolaz kanpoko **aktibitateen** artean, esate baterako, ez dira gutxi korronteari amore ematen ari zaizkionak. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Helduden igandean 13 an ganer huste bat izanen da egun guzian Altzabea **aktibitate** gunean. Herria

Aktibitate mota hau ikasketak ordaintzeko edo negu sasoina arte irauteko premiatsua da ainitzentzat. Herria

Alderdi horretatik, pozik gaude, nahiz eta eskaintza aurreko urtean baino %7 handiagoa izan eta **aktibitate** bolumen hori gure gaitasunen mugan egon. Berria - Euskal Herria

Aktibitate eskaintza urria, burdinez inguratutako patio itogarria, bertze lagunik ondoan ez izateak egiten dute ziega izatea gustukoa den alternatiba bakarra Egia da unibertsitarioen langabezia tasa gainerakoena baino garaiagoa dela, baina gauza bera gertatzen da **aktibitate** tasekin ere. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kirol **aktibitateak** : Altxorraren Departamentuari egin beharko diote eskaera kirol ekintzaren bat egin nahi izanez gero. Berria - Mundua

Haur eta gazte horiek bertsolaritzan (bertso eskoletan, kanpo **aktibitateetan** , harremanetan) eman denboran, beti ari dira euskaraz mintzatzen. Berria - Kultura

5 ***aktibitate erradioaktibo*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***3*** *agerraldi)*

Ikuskatzaileek ustekabeko **aktibitate erradioaktiboa** aurkitu dute Garoñako zentral nuklearrean. ETC-prentsa

1910ean, **aktibitate erradioaktiboaren** unitateari Curie (Ci) izena jartzea onartu zuen Erradiologia Batzordeak; 3,7×1010 becquerelen baliokidea da. ETC-entziklopedia

6 ***aktibitate optiko*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***32*** *agerraldi)*

Karbono asimetrikoak dituzten molekulek **aktibitate optikoa** dute, eta isomero enantiomero deritzonak dira. ETC-entziklopedia

Isomeria optikoari erreparatuz, esan daiteke aminoazidoek **aktibitate optikoa** dutela karbono asimetrikoa dutelako. **Aktibitate optikoa** dutenez argi polarizatua desbideratu dezakete bi norabideetan. ETC-entziklopedia

Bi molekulen **aktibitate optikoaren** balioa berdina da baina zeinuz kontrakoa, horregatik anulatu egiten da balio totala. ETC-entziklopedia

Gainera, konposatu kiralen **aktibitate optikoari** kausa fisiko bat eskaintzen zion. ETC-entziklopedia

Konformero batetik bestera pasatzean, disoluzioaren **aktibitate optikoa** aldatuko da, hau da, argi polarizatua desbideratzeko ahalmena. ETC-entziklopedia

12.7 Zer esaten digu simetriak momentu dipolarrei eta **aktibitate optikoari** buruz? ETC-zientzia, zuzenbidea

Molekula enantiomerikoen **aktibitate optikoa** aztertzea liburu honen helburuetatik kanpo dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 ***kanpo aktibitate***

Gazte horiek bertsolaritzan (bertso eskoletan, **kanpo aktibitateetan** , harremanetan) eman denboran, beti ari dira euskaraz mintzatzen. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aktibitate bat** (3); **aktibitate handiko** (3); **aktibitateak eta** (3); **bere aktibitateak** (3); **da aktibitate** (4); **duten aktibitate** (3); **eta aktibitate** (6); **kirol aktibitateak** (3)

---

aktibo **1** *izond* egiten duena, aritzen dena, ekintzari dagokiona; aktibitatea erakusten duena.

Ona da burmuina lantzea, pertsona **aktiboa** izatea. Berria - Gaiak

Baina entzule **aktibo** hori interesatzen zait. Berria - Kultura

Adierazpen hau sinatzen dugunok, Egunkaria-ren itxiera basatiaren aurka Euskal Herrian oldartutako gizarte **aktibo** anitza dugu gogo hurbilean. Berria - Euskal Herria

Loialistek egoera aztertu eta bake prozesuaren parte **aktibo** izan behar dute, orain arte ez bezala. Berria - Mundua

Oso bizitza politiko **aktiboa** izan dut, eta, horretarako, uko egin behar izan diet nire idazle bizitzako hamar urteri. Berria - Mundua

Jendeak rol **aktiboagoa** jokatu zuen; 80ko hamarkadako erresistentzia militarretik bestelakoa. Berria - Mundua

Gurasoek lan **aktiboa** izan behar dute, baina oso litekeena da jazarpen kasuei buruz ezertxo ere ez jakitea. Berria - Harian

Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatua izan dadin, ezinbestekoa da aipagai dugun prozesuan herritar guztiok parte hartze **aktiborako** aukera izatea. Berria - Euskal Herria

Halere, nik uste dut badagoela abstentzio **aktibo** bat ere. Berria - Harian

Erakusketa azken hilabeteotan eginiko lan handiaren emaitza dela azaldu zuten Massimiliano Gioni eta Marta Kuzma komisarioek, eta 2002ko maiatzetik, euskal erakundeen eta International Foundation Manifestaren arteko protokoloa sinatu zenetik, "negoziazio **aktibo** bat" izan dela gaineratu: [...]. Berria - Kultura

"Guk, zerbait gisaz, euskalgintzan ari garen uztariztarrek, aspaldi galdatzen dugu gure herrian, hizkuntza politika **aktiboa** bultzatua izan dadin. Herria

Lege proiektuaren kontra daudenetako askok talde kristauak dira gehienak uste dute lege honek gaixoei eutanasia **aktiboa** egiteko aukera emango duela. Berria - Gaiak

Metodo komünikatibo eta **aktibo** bati esker, ürratsez ürrats, berdin txostakatüz, ikasten da. Herria

Delphine Lubet, "Santiagoko bidearen lagunen elkarteko" kide **aktiboa** da. Herria

Egoera aldatzeko emakumeak kirol munduan partaide **aktiboa** izan behar duela nabarmendu zuten. Berria - Kirola

Hizkuntzalarien artean, logikoa denez, Chomskyren lanean parte-hartzerik **aktiboena** izan zutenak beren doktoretza-tesiak prestatzean Chomskyrekin materialari buruz zuzenean eztabaidatzeko aukera zutenak izan ziren, hala nola Lees eta Eduard Klima. Itziar Laka

Arantzazun, Gandiaga kulturgune berria estreinatu den egunean, Joan Maria Uriarte Donostiako apezpikuak" pazientzia **aktiboa** " gomendatu du. Herria

Hegazti gripearen giza kasuak tratatzeko erabiltzen den botikaren osagai **aktiboa** laborategian egiteko modua topatu dute Japonian. Berria - Gaiak

Planeta **aktiboa** izan da, bai ikuspuntu bolkanikotik eta bai ikuspuntu hidrologikotik ere. Berria - Gaiak

Gainera, orrialde **aktiboa** da, egunero sartzen dugu informazioa. Berria - Kultura

Demokratentzat egun tristea da 54 hautagaiei boto eskubide **aktiboa** eta pasiboa urratu zaielako. Berria - Euskal Herria

"Enplegu politika **aktiboak** eta pasiboak berreskuratzeko apustua egiten dugu", adierazi zuen. Berria - Ekonomia

Europako Batzordeak eskaera zuzena egin zien Europako Batasuneko herrialdeei: **aktiboagoak** izan daitezela eta ez daitezela abstenitu transgenikoei buruzko erabakiak

hartu behar direnean. Berria - Harian

Printzipio **aktibo** hori dute Clamoxil, Fluobiotic eta Ardinek. Berria - Euskal Herria

· Halaber, abstentzioa **aktiboa** izan zela azpimarratu du. Berria - Euskal Herria

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak hezkuntza sistemako ikasleak, **aktiboan** lanean ari direnak nahiz denbora luze edo motzean langabezian daudenak har ditzake. Berria - Euskal Herria

2 lana duena.

Ipar Euskal Herrian eta Frantzian, banaz beste, herritar **aktiboen** artean %9,6 daude langabezian. Berria - Harian

Uhartearen populazio **aktiboa** 160.000 pertsonetakoa da eta horietatik 27.000 gutxieneko soldatarekin bizi dira. Berria - Mundua

Aldi baterako kontratu kopuruen erdiak 30 urte baino gutxiago dituzten gazteen esku dau-de, haiek EAEko langileria **aktiboaren** %25 baino ez diren arren. Berria - Ekonomia

Hego Euskal Herriko biztanleria **aktiboaren** %8,62 lanik gabe zeuden iazko azken hiruhilabetekoan, atzo INEk Espainiako Estatistika Institutua kaleratutako Biztanleria **Aktiboaren** Inkestaren arabera. Berria - Euskal Herria

Emakumeen egoera are okerragoa da adin tarte horretan: lau emakume **aktibotik** bat lanik gabe dago. Berria - Ekonomia

3 (adizlagun gisa)

Telebistan, egunkarietako orrietan eta begien aurrean ikusitako "Srebrenicako amen" irudietan pentsatu nuen, "antolatuta eta **aktibo**" munduaren aurrean, diktaduraren garaian galdutako seme-alaben bila dabiltzan Buenos Airesko ametan. Berria - Harian

Errepublikanoek nabarmendu zuten RUC Poliziaren Adar Berezia, soldadu britainiarrak eta paramilitar loialistak oraindik ere arrunt **aktibo** zebiltzala; ez zieten kasurik egin. Berria - Mundua

Antzezleak beti daude ikusleen aurrean, alboetako aulkietan jesartzen baitira **aktibo** ez dauden bitartean. Berria - Kultura

Aktiboago jokatzen du, bai, egoerak moztu behar dituelako edo bertsolaria desbideratu delako tramagileak buruan zuen ideiatik. Berria - Kultura

4 (izen gisa) pertsona edo entitate baten ondasunen multzoa.

Diru laguntzekin 300 langile kanporatuta, 120 milioi euroko **aktiboak** izango ditu. Berria - Ekonomia

Zalantzazko **aktiboen** bolumenak %1,3 gora egin zuen, 53 milioi eurora helduz. Berria - Gaiak

Saldu beharreko **aktibo** horiek erosteko borondatea jada azaldu zion Enelek Gas Naturali gutun batez bidez. Berria - Ekonomia

Eroslea ING Herbehereetako taldearen barruan dagoen inbertsio funts eta higiezinen **aktiboak** darabilen erakunde bat da: ING Investment Management. Berria - Ekonomia

BellSouthen **aktiboak** erosita, Hego Amerikako konpainia nagusi bilakatu da. Berria - Ekonomia

Azken bost urteotan puztu den etxebizitza burbuilaren erantzuleetako bat dela uste dute: "Gutako batzuk uste dugu **aktiboen** burbuila batzuk sortzen lagundu zuela", zioen atzo Paul Kasriel Northern Trusteko ekonomista buruak. Berria - Ekonomia

Planaren arabera, Alstomek bere **aktiboen** %10 saldu beharko ditu epe motzean. Berria - Ekonomia

Aktiboen salmenta dago kopuru izugarri horren atzean, baina iazko datu konparagarriekin ere, 1.841 milioiko mozkina atera du Pizarro buru duen argindar enpresak: %60ko hazkundea eta mozkin marka berria. Berria - Ekonomia

Ekonomisten arabera, erreserba horietatik %70 dolar **aktiboetan** inbertitu ditu Txinak. Berria - Ekonomia

Alstomen **aktiboetatik** 1.500 milioi euro saltzera ere behartu du Bruselak. Berria - Ekonomia

· Aljerko prozesuak utzitako beste **aktibo** garrantzitsua ETAren aitortza politikoa da. Berria - Harian

Arauak 2.500 milioi pezetako kopurua gainditzen zuten **aktibo** finko materialetarako inbertsioei %45eko murrizketa ahalbidetzen zien zerga kuotetan. Berria - Ekonomia

Adituen arabera, konpainiak 70.000 milioi dolar ditu **aktibo** likidoetan. Berria - Ekonomia

Kalte-ordainak eskatu dizkiote "gure **aktibo** nagusia gobernuaren esku geldituko delako ziurrenik". Berria - Ekonomia

Zalantzazko **aktiboek** eta berankortasun indizeak, aldiz, inoiz izandako mailarik apalenean jarraitzen dute. Berria - Ekonomia

5 gramatikan, aditz formez eta kidekoez mintzatuz, esaldi baten subjektua agentea dela adierazten duena.

Argi dago perpaus pasiboei boz **aktiboko** perpausak dagozkiela sistematikoki, ezaugarri erabat espezifikoak dituztenak, hala nola aditza iragankor akusatiboa izatea eta beste. Itziar Laka

Perpaus **aktiboa** eta dagokion pasiboa sinonimoak dira. Itziar Laka

Aukera biak erkatzean, konplexutasun mailari dagokionean ez dago zalantzarik; **aktiboak** hartu behar ditugu muin-perpaustzat, eta ez pasiboak. Itziar Laka

6 ***aktibo bihurgarri*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Kontabilitatean, **aktibo bihurgarria** eskudiru bihurtzea berezko helburu duten aktiboko kontuen multzoa da, hala nola salgaiak, kaudimendun bezeroen zorrak, letrak, eta saldu daitezkeen finantza tituluak (akzioak, esaterako). ETC-entziklopedia

7 ***aktibo finantzarioen balorazio eredu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Aktibo finantzarioen balorazio eredua (edo "CAPM"), area finantzarioan gehien erabiltzen den tresnetako bat da. ETC-entziklopedia

8 ***aktibo finko***

Arauak 2.500 milioi pezetako kopurua gainditzen zuten **aktibo finko** materialetarako inbertsioei %45eko murrizketa ahalbidetzen zien zerga kuotetan. Berria - Ekonomia

Gehienez 15 urteko amortizazio epea pabiloietan inbertitzeko eta 7 urtekoa beste **aktibo finkoetarako**. Berria - Ekonomia

Nabarmen gainditu du urte hasieran iragarritako %8ko hazkundea, batez ere, **aktibo finkoetan** egindako inbertsio bortitzen eraginez (%27). Berria - Ekonomia

9 ***aktibo korronte*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Kontabilitatean, aktibo zirkulatzailea edo **aktibo korrontea** eskudirutan aise eta epe laburrera (urtebetea baino lehen) bihur daitezkeen enpresaren ondasun eta eskubideek osatzen dute, aktiboaren beste osagaia den aktibo finkoko elementuak ez bezala. ETC-entziklopedia

10 ***aktibo ukiezin*** *(corpusean ez dago; ETCn **89** agerraldi)*

Edesa eta Aspesekin, esaterako, beste hainbeste gertatuko da, **aktibo ukiezin** guztiekin bezala. ETC-prentsa

Azken **aktibo ukiezin** horien truke 5,5 milioiko eskaintzak ez du oniritzia epailearen atzoko jakinarazpenean, baina bide zabalik uzten du Malagonek administratzaileek horiek saltzeko baimena eska dezaten. ETC-prentsa

Aktibo ukiezina da, ez dago formula ekonomiko batekin azaltzerik; klubak emaitza kaskarrak lortuta ere, balio horrek eutsi egingo dio. ETC-prentsa

Orain, geroari begira, lehenagoko horiek ahaztu gabe, beste arlo ezinbesteko batzuetan egin behar dugu lan: ondasun ukiezinak, zerbitzuak, markak, eskubideak, jakintzak, etengabeko prestakuntza, kultur **aktibo ukiezinak**, eta nola ez, marketina. ETC-literatura, saiakera

Lidergoa, **aktibo ukiezinak** eta ezagutzaren kudeaketa antolakuntzetan ETC-zientzia, zuzenbidea

Konpainiok beren **aktibo ukiezinen** mende zeuden (merkataritza-funtsaren, ospearen, know-howaren mende), eta nahiago zuten produktuak zuzenean fabrikatu, beren markaren ospea tokiko kontratisten esku utzi beharrik ez izateko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arazo nagusietako bat erositako aktiboen balioa zehatz ebaluatzea da, batez ere **aktibo ukiezinak** erosten direnean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aktibo ukiezin edo likido batek hurrengo ezaugarriak ditu: azkar saldu daiteke, balioaren diru-galtze txikiarekin, edozein momentuan. ETC-entziklopedia

11 ***aktibo zirkulatzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Kontabilitatean, **aktibo zirkulatzailea** edo aktibo korrontea eskudirutan aise eta epe laburrera (urtebetea baino lehen) bihur daitezkeen enpresaren ondasun eta eskubideek osatzen dute, aktiboaren beste osagaia den aktibo finkoko elementuak ez bezala. ETC-entziklopedia

Horrela, maniobra-fondoarekin lotura estua duen kontzeptua da: heltze-aroa luzea denean, heltze-aro osoko **aktibo zirkulatzailea** nolabait finantzatu beharreko maniobra-fondo handia beharko du enpresak. ETC-entziklopedia

Pasiboa osatzen duten kapital hauek ekoizpen-faktore aktibo finko (instalazioak, makinak, adibidez) zein **aktibo zirkulatzaileak** (behar den gutxieneko inbentarioaren

balorazio inbentarioa) eskuratzeko erabiltzen dira. ETC-entziklopedia

Bi helbururekin: barne kontsumoa bultzatzeko jarduerak martxan jartzeko eta enpresen **aktibo zirkulatzaileari** laguntzeko programak bizkortzeko. ETC-prentsa

Ahots Kooperatibistak Deloitte auditoretza-enpresaren balorazioak aipatzen ditu; horien arabera, " **aktibo zirkulatzailea** ez da pasibo zirkulatzailea estaltzeko gai". ETC-prentsa

12 *aktiboen errendimendu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Aktiboen errendimendua edo errentagarritasuna ustiapenaren eraginkortasunaren neurria da, erabilitako finantza iturrien eragina kontuan izan gabe. ETC-entziklopedia

13 *aktiboen errotazio* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

2018tik 2020rako planak jasotako **aktiboen errotazioaren** barruan sartzen da salmenta. ETC-prentsa

Aktiboen errotazioa enpresa baten aktiboaren erabilerarekin salmentak egiteko duen efizientzia neurtzen duen finantza-ratio bat da. ETC-entziklopedia

14 *biztanleria aktibo*

Urteko bigarren hiruhilekoan Hego Euskal Herriko **biztanleria aktiboaren** %8,3 langabezian zela jakinarazi zuen atzo INE Espainiako Estatistika Institutuak. Berria - Ekonomia

INEk hiruhilean behin **biztanleria aktiboari** egiten dion galdeketaren emaitzak erabat ezkorrak dira oraingoan. Berria - Ekonomia

ELGEk jasotako datuen arabera, 1978 eta 1994 bitartean, Europar Batasuneko **biztanleria aktiboaren** hazkundearen erdia bakarrik dagokio lanpostuen sorrerari; gainerakoak langabeziaren estatistikak puztu ditu, urtero 700.000 langabe inguru erantsiz urtero. Koro Navarro

Hemezortzi hilabeteko epean, industria-ekoizpenaren indizea bi heren jaitsi zen, eta langabezia **biztanleria aktiboaren** heren batera iritsi zen. Koro Navarro

Lehen ikusi dugunaren arabera, oso epe laburrean, EAEn biderkatu baino gehiago egin da unibertsitarioen proportzioa **biztanleria aktiboan** (%12'5etik %26'5era), eta horietako gehienek maila garaiko lana egin dute, askok beren enpresak sortuz. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Izan ere, langabezia neurtzeko erabiltzen den ohiko adierazlean jasotzen denez, gogoz kontra lanik ez duen **biztanleria aktiboaren** portzentaje gisa definitzen baita langabezia-tasa, eta beraz, biztanleriaren bilakaerak eragin itzela du auzian. Iñaki Heras

15 *boz aktibo*

Esaterako, argi dago perpaus pasiboei **boz aktiboko** perpausak dagozkiela sistematikoki, ezaugarri erabat espezifikoak dituztenak, hala nola aditza iragankor akusatiboa izatea eta beste (43. or.). Itziar Laka

16 *direktorio aktibo* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Windows 2000ko ezaugarri berrien elementu nagusia **Direktorio Aktiboa** (Active Directory) izan zen; hau da, objektu arbitrarioen izenak objektu horiei buruzko edozein motatako informaziorekin lotzeko gai den direktorio-zerbitzu banatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Direktorio aktiboak (ingelesez "Active Directory") administratzaileei enpresa mailako politikak ezartzea, ordenagailu askotan programak zabaltzea eta erakunde oso bati eguneraketak aplikatzea ahalbidetzen die. ETC-entziklopedia

17 *finantza-aktibo*

Hori guztia dela eta, Nazioarteko Erregulazioen Bankuak kredituaren arriskua (mailegu-hartzaileak huts egitea) kapitalizatzeko arauak merkatuaren arriskura (**finantza-aktiboen** prezioen aldaketak) zabaltzea proposatu du. Koro Navarro

Petrolio konpainien kontu liburuetan, erreserbek beste gainontzeko **finantza aktiboek** adina garrantzi dute. Berria - Ekonomia

Niri inoiz ez litzaidake gogoratuko saio sadomasokista bat **finantza-aktiboei** buruzko araudi berri baten mozorropean aurkeztea. Aingeru Epaltza

18 *galaxia aktibo* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Galaxia aktiboa bere erdigunetik gertuko puntu txiki batetik erradiazio elektromagnetiko energia handia igortzen duen galaxia da. ETC-entziklopedia

Nire tesiaren aurreko ideia zen galaxia mota batek bakarrik zituela zulo beltzak: **galaxia aktiboek**. ETC-prentsa

19 *garraio aktibo* *(corpusean ez dago; ETCn **190** agerraldi)*

Garraio aktiboa zelula mintzean gertatzen den garraio mota bat da, hainbat ioi eta substantziak kontzentrazio-gradientearen aurka mugitzen dituena. ETC-entziklopedia

Uabaina, sodioaren **garraio aktiboa** inhibitzen duen glukosido kardiakoa. ETC-literatura, saiakera

Bapo gosaldu ostean, hor arituko dira urdaileko proteinak jandako croissant hori are gehiago birrintzen, ondoren hesteetako zelulek difusio edo **garraio aktibo** deituriko prozesuen bidez xurgatu ahal izateko. ETC-prentsa

Zenbait xurgapen-mekanismo ditu, esate baterako: barreiadura sinplea eta erraztua, **garraio aktiboa** eta akoplatua, eta endozitosia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Epitelioan zeharreko sodio-**garraio aktiboak** osmosi-gradiente bat sortzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sareari lotutako kostu garrantzitsu bakarrak instalazioen inbertsio- eta mantentze-kostuak dira, eta horietako bakarra ere ez dago praktikan **garraio-aktiboen** erabilera elektrikoarekin lotuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adibide horietan zelularen oinaldeko tolesturen artean, **garraio aktiborako** energiaiturria diren mitokondriak metatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zelula perineuralek beren mintz plasmatikoan substantzien **garraio aktiborako** beharrezkoak diren hartzaileak, entzimak eta proteina garraiatzaileak dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

20 *hiztegi aktibo* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Adibidez, gaztelania eta ingelesa ikasten hasi berriak ziren haur elebidunak (zortzi hilabetetik bi urte eta erdira bitartekoak) ikertu zituzten ikerlariek, eta korrelazio nabarmena ikusi zuten elkarrekintzan oinarritutako esposizio-mailaren eta haurrek hizkuntza bakoitzean zuten **hiztegi aktiboaren** tamainaren artean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hau da, lehen haurtzaroan zehar, hiztegi pasiboak nabarmen gainditzen du **hiztegi aktiboa**. ETC-zientzia, zuzenbidea

21 *ikaskuntza aktibo* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Ikaskuntza aktiboa ikasleak berak bere ikaskuntza-prozesua zuzendu eta aurrera eramatea bultzatzen duena da, ikasleari bilaketa eta ikerketa eskatzen dituzten ebazkizunak planteatuz. ETC-entziklopedia

Tresna interesgarria da, beraz, presentziazko irakaskuntzari laguntzeko eta ikasleen **ikaskuntza aktiboa** sustatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikaskuntza aktiboa bultzatzen da eta ikasleak du prozesuaren pisu guztia; irakaslea orientabide eta gida moduan dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bizitza osoko prestakuntza eta **ikaskuntza aktiboa**, eskuragarria eta malgua sustatuko dituen eta campus birtualaren bidez zein informazio eta komunikazio teknologien bidez urrutiko ikaskuntza erraztuko duen graduondoko eskaintza bultzatzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erronketan oinarritutako **ikaskuntza aktibo** kolaboratiboa oinarri, ETHAZI5 eredua zabaltzen hasten da, zeharkako gaitasunak gaitasun teknikoekin batera eraginkorki garatzea delarik helburua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Irakaslearen azalpenak entzutean soilik oinarritzen den tradizio pasiboa baztertu eta ikasleek beraiek gauzak egitean ikastea, **ikaskuntza aktiboa**, alegia, da Cognitive Artsek proposatzen duen metodoaren funtsa. ETC-prentsa

Helburua da **ikaskuntza aktiboa** bultzatzea, eta errespetua eta ezberdintasunarekiko tolerantzia eta sexistak ez diren balioak sustatzea. ETC-prentsa

22 *metodo aktibo* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Bestetik, **metodo aktibo** delakoei lotuta egon daiteke, non problema ikaskuntzaren bitarteko gisa erabiltzen baita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Metodo aktibo eta parte-hartzailea izango da. ETC-prentsa

Horiek guztiak pertsona heldu, haur, normal, karakterial, neurotiko edo psikotiko baten bizipena aztertzeko **metodo aktiboak** dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Maria Montessori eta Decroly (baita Claparede eta beste batzuk ere) **metodo aktiboaren** lehen bultzatzaileak izan ziren, haurraren ezagutzaren asimilazioaz, pentsamendu-teknikez eta soziabilizazioaz jabetu zirenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

23 *osagai aktibo*

Kalamuaren **osagai aktibo** nagusia Tetrahidrocannabinola edo TCHa da. Berria - Harian

Hegazti gripearen giza kasuak tratatzeko erabiltzen den botikaren **osagai aktiboa** laborategian egiteko modua topatu dute Japonian. Berria - Gaiak

24 *potentzia aktibo* *(corpusean ez dago; ETCn **221** agerraldi)*

Alabaina, naturan ez dago egintzan bihur dezakeen **potentzia aktibo** batek erantzuten ez dion potentzia pasiborik; bestela, potentzia hura alferrik legoke. ETC-literatura, saiakera

Lehenengoari buruz, bada, esan behar da ezen **potentzia aktibo** ordenatuetan sarri gertatzen dela azken helburura eroatea gorengo potentziari egokitu ohi zaiola. ETC-literatura, saiakera

Nahia, adibidez, **potentzia aktibo** bat da. ETC-literatura, saiakera

Horren ondorioz, potentzia-faktorea izango dugu (hots, kontsumitutako **potentzia aktiboaren** eta itxurazko potentziaren arteko erlazioa), eta kontsumoek penalizazioak izango dituzte tarifetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lan bihurtzen den potentzia erabilgarria **potentzia aktiboa** da; Kondentsadore eta solenoideetan metatzen den energia ez da erabilgarria, potentzia erreaktiboa da. ETC-entziklopedia

25 ***printzipio aktibo*** sendagai baten osagietako gaia, hari ezaugarri sendagarriak ematen dizkiona.

Honela bada, guztira 65 **printzipio aktibo** ezberdinez egindako 2.070 sendagai dira. Berria - Euskal Herria

Gehien jaitsi diren botiken artean simvastatina eta fluoxetina dutenak daude, eta **printzipio aktibo** hori duten sendagai ezagunenak Zocor eta Prozac dira, hurrenez hurren., Horixe dela kasik gure kabitu-ezinen ustezko sendagarrien **printzipio aktibo** bakarra. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abstentzio aktiboa (3); **agente aktibo** (3); **aktibo bat** (8); **aktibo bihurtzen** (3); **aktibo eta** (16); **aktibo gisa** (3); **aktibo hori** (7); **aktibo horiek** (3); **aktibo izan** (13); **aktibo izan behar** (6); **aktibo izan nahi** (3); **aktibo izango** (4); **aktibo izango den** (3); **aktibo izateko** (8); **aktibo nagusia** (3); **aktibo pasibo** (4); **aktiboa da** (14); **aktiboa egin** (3); **aktiboa eta** (19); **aktiboa eta pasiboa** (5); **aktiboa izan** (37); **aktiboa izan behar** (11); **aktiboa izan da** (3); **aktiboa izan zen** (3); **aktiboa izango** (4); **aktiboa izatea** (6); **aktiboa izateko** (8); **aktiboak eta** (6); **aktiboak eta pasiboak** (4); **aktiboak izan** (5); **aktiboan parte** (7); **aktiboan parte hartzeko** (3); **aktiboaren inkestaren** (4); **aktiboaren inkestaren arabera** (3); **aurkako jarrera aktiboa** (3); **biztanle aktiboak** (3); **biztanle aktiboen** (4); **biztanleria aktiboa** (3); **biztanleria aktiboaren** (15); **biztanleria aktiboaren inkestaren** (3); **bortxakeriarik eza aktiboaren** (5); **enplegu politika aktiboak** (3); **enpleguaren politika aktiboak** (3); **era aktiboan** (4); **era aktiboan parte** (3); **eragile aktibo** (10); **eragile aktibo izan** (5); **eragile aktibo izateko** (3); **eragile aktiboa** (18); **eragile aktiboa izan** (6); **eragile aktiboa izango** (3); **eragile aktiboa izateko** (4); **eragile aktiboak** (3); **eta aktibo** (10); **eta aktiboa** (4); **eutanasia aktiboa** (3); **eza aktiboaren** (5); **hainbat aktibo** (6); **hartze aktibo** (3); **hartze aktiboa** (12); **hartze aktiboa izan** (3); **jarrera aktiboa** (19); **jarrera aktiboa eta** (3); **jarrera aktiboa izan** (4); **kide aktiboa** (3); **konpromiso aktiboa** (5); **laguntza aktiboa** (3); **militante aktibo** (3); **modu aktiboan** (9); **modu aktiboan parte** (4); **partaide aktiboa** (3); **parte aktibo** (3); **parte aktiboa** (3); **parte hartze aktibo** (3); **parte hartze aktiboa** (11); **politika aktibo** (3); **politika aktiboak** (15); **politiko aktiboak** (3); **populazio aktiboaren** (5); **printzipio aktibo** (7); **rol aktiboa** (5); **subjektu aktibo** (9); **subjektu aktiboa** (3); **zerbitzu aktiboan** (3)

---

aktiboan *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **jardunean** eta **arian** agertzen dira) adlag* aktibitatean diharduenaren moduan.

Aktiboan harrapatzen dituen militanteen egoera, berriz, oso txarra izango da. Bernardo Atxaga

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak hezkuntza sistemako ikasleak, **aktiboan** lanean ari direnak nahiz denbora luze edo motzean langabezian daudenak har ditzake. Berria - Euskal Herria

---

aktiboki *adlag* era aktiboan.

Hobea da nork bere baitan **aktiboki** pizturiko sugarra, besterenetik hartua baino. Markos Zapiain

Berez etorriko al zen, besterik gabe, ala berak ere **aktiboki** esku hartu beharko zuen? Karlos Linazasoro

Eskolari auzia sortzen zaio: alde batetik, nola eskuhartu **aktiboki** gaur egiazkoa den balioen krisia eta erlatibismoa "gainditzeko" eztabaidan, eta bestetik, ez izan balio batzuen absolutismoan interesatua den Estatuaren eskumakila hutsa. Joxe Azurmendi

Italiar belaunaldi oso baten alai-aire ironikoa zen, faxismoa arbuiatzeko aski buruargi eta prestu, **aktiboki** kontra egiteko eszeptikoegi, itxura hartzen ari zen trajedia pasiboki onartu eta geroaz etsitzeko gazteegi. Juan Garzia

Badakigu, nazioarteko definizioen arabera, honako hauek bakarrik hartzen direla langabetutzat: aurreko astean lanik egin ez duten (edo ordubetez baino gutxiago lan egin duten) pertsonak, eta **aktiboki** lan bila dabiltzanak. Koro Navarro

Hirugarren kontingente bat, hiruretako zoritxarrekoena eta, beraz, **aktiboki** disidenteena, hainbat jatorritako *déraciné*-ena zen. Iñaki Mendiguren

Inertzia oinarrizko eta lasaigarri hori adierazi gabe (zeina aldaketaren erreferentzia egiteko joera dugun) eurak **aktiboki** eta erregularki eratuak izaten dira. Xabier Arregi

Mugimendu horren parte nahi dut izan, **aktiboki** eta kontzienteki. Ana Urkiza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aktiboki parte (7); **aktiboki parte hartu** (4)

---

aktibotasun *(corpusean ez dago; ETCn **105** agerraldi) iz* aktibo izatearen nolakotasuna.

Ikasleen pasibotasunaren ordez, **aktibotasuna** bultzatzen zen, eta buruz ikasi beharrekoen ordez, hau da, errepikapenean oinarritu beharrean, ezaguerak esperientziaren bidez barneratzen ziren. ETC-literatura, saiakera

Baina urte batzuetan ez du izan **aktibotasun** ideologikorik, ez da aritu begiratuak ekoizten, ez da aritu etorkizunean bere ikuspegia nagusiarazteko konspiratzen. ETC-literatura, saiakera

Edozelan, momentua eta akzioaren pasibotasun edo **aktibotasuna** gorabehera, beste guztiak berdin egingo luke bere bidea. ETC-literatura, saiakera

Haien oposizioa ez da, hala esan izan bada ere, **aktibotasun** baten eta pasibotasun baten artekoa: obuluaren nukleoa aktiboa da, eta, gainera, enbrioiaren garapena prozesu bizi bat da, eta ez bilakabide mekaniko bat. ETC-literatura, saiakera

Horrelako ahaleginek gizarte zein pertsonen irekiera, **aktibotasun** intelektuala eta egiazaletasuna ahalbideratuko dute eta guzti hori zientziari hain berezkoa zaion bilaketaren oparotasunaz. ETC-prentsa

Edo **aktibotasun** geldia da gertatzen ari dena? Ez dakit, nahasita nago, baina horra bake prozesua ezinezkoa den zerbaiten ohol-gainean, gelditasunaren eta mugimenduaren arteko orekari eutsiz. ETC-prentsa

Horietan baliatu ohi den hipotesiaren arabera, odol berokotzat jotzen diren herrialdeetan (espainiarrak, italiarrak...) hitzekin **aktibotasun** handiagoa erakusteko joera dago. ETC-prentsa

Lekukotza eman zuten ertzain guztiek azpimarratu zuten **aktibotasun** hori. ETC-prentsa

Aktibotasuna dago, zu prest zaudelako ibilbide hori egiteko, jakin behar duzu hala ere, ez dakizula ibilbide horrek noraino eramango zaituen. ETC-prentsa

Dena dela, kopuru hori "pertsona horien **aktibotasun** tasa baxuak baldintzatuta" dagoela azaldu dute, kontuan hartuta "elbarritasunen bat duten 25.000 pertsonatatik soilik 10.000" daudela aktibo eta lan bila: hau da, %41. ETC-prentsa

Esaterako, hiriguneetan bizi diren emakumeek baino **aktibotasun** tasa apalagoa eta errenta txikiagoak dituzte landa eremuko emakumeek. ETC-prentsa

Kasu honetan, **aktibotasun** -pasibotasuna lotuta doa desirarekin eta horren inguruko hausnarketa interesgarriak azaltzen zaizkigu Meaberen poemetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, erakargarritasuna eta **aktibotasuna** lortzeko, ziur asko, gai serioak eta gai ludikoak uztartu beharko dira, eta gai orokorrak espezializatuekin partekatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

ezaugarriak eta islak aurkitzea: ezaugarri fisikoak, **aktibotasuna** eta pasibotasuna, etxeko lanen banaketa eta kolore urdinaren eta arrosaren presentzia aztertzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mugimenduak pertsonek osatzen dituzte eta esan genezake pertsona horien deskribatzaile nagusia **aktibotasuna** dela; eragilearen dinamiketan ez ezik, bestelako eremu (lantoki, hezkuntza... ETC-zientzia, zuzenbidea

Magnesio kopuru handiegia badu organismo batek, kanal gehiago itxiko eta blokeatuko dira, horrela, nerbioari **aktibotasuna** murriztuko zaio. ETC-entziklopedia

Osagai aktibo baten **aktibotasuna**, motaren arabera aldatzen da, baina beti dago hartutako kopuruarekin lotua. ETC-entziklopedia

Urte batzuk geroago, politikan sartu zenean, biziraule eta langile sutsu gisa irudikatu zuen ama, eta norbanakoak eduki ditzakeen bertute nagusiak umiltasuna, apaltasuna, onestasuna eta **aktibotasuna** direla irakatsi zion pertsona izan zela aitortu zuen. ETC-entziklopedia

---

aktina *(corpusean ez dago; ETCn **378** agerraldi)* *iz* protoplasma zelularraren proteina izpitsua.

Aktina zelula muskularretan dagoen proteina da, miosinarekin batera gihar-uzkurdura eragiten duena. ETC-entziklopedia

Fagozitatu beharreko partikula zelularen mintzean dauden hartzaile espezifikoekin lotzean, **aktinazko** piruen berrantolaketa eragiten du, zelularen zitoplasmaren luzapena eraginez zenbait puntutan. ETC-entziklopedia

Neuronetan ere **aktina** -espektrina konplexuez eraturiko sareak aurkitu dira. ETC-entziklopedia

Gihar ildaskatuan miofibrila izeneko egitura luzeak daude, **aktina** eta miosina proteinez osatuak. ETC-entziklopedia

Ikertzaileen arabera, oroitzapenak sortzean gertatzen diren prozesuen artean, aldaketak gertatzen dira zelulen egituran, **aktina** proteinaren bidez. ETC-prentsa

Mikrofilamentuak **aktina** proteinaren polimero dira, eta zelularen proteina-edukieraren % 5eko proportzioan ager daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 **Aktina** eta miosina izan daitezke makromolekulak eta partikulak poroan zehar mugitzea ahalbidetzen dutenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Muskulu-zelulen ezaugarri nagusietariko bat zera da: **aktina** eta miosina proteina uzkurkorrez antolatutako zitoeskeletoa azaltzen dutela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ca2 kontzentrazioa zitosolean jaisten denean, fosfatasa bat aktibatzen da, miosina desfosforilatzen du, eta miosina eta **aktina** banantzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gene akastunak proteina zitosoliko bat kodetzen du, zeinak seinalizazio-segidetan eta **aktina** -zitoeskeletoaren erregulazioan parte hartzen baitu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aktinia *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)* *iz* gorputz zilindrikoa eta mamitsua duen polipo generoa *(Actiniaria ord.)*.

Itsas izarra, **aktinia**, anemona, itsas barea, gorgonia, zarboa eta beste, kolore liluragarrietako bizia gordetzen du Bizkaiko Golkoak. ETC-prentsa

Tentakulu pozoitsuei esker harrapakinak harrapatzen dituzten **aktiniak** eta anemonak ETC-prentsa

Aktinia edo itsas anemona eta hamarratz ermitaria dira lekuko: **aktinia** barraskilo-maskor huts bati itsasten zaio, karramarroak babestoki bezala erabiltzen duena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Karramarroak leku batetik bestera eramanten du **aktinia** (etxetzat aukeratu duen oskolaren gainean) eta **aktiniak** babesa eta defentsa ematen dio karramarroari. ETC-entziklopedia

Loreak **aktinia** itxurakoak dira, eta fruitua kuskuan edo drupan izaten dute. ETC-entziklopedia

---

aktinido *(corpusean ez dago; ETCn **58** agerraldi)* *iz* elementu kimikoez mintzatuz, 89 eta 103 arteko zenbaki atomikoa duena.

Taula periodiko horretan garbi ikusten da zergatik dituzten hain propietate kimiko antzekoak lantanidoek (58tik 71ra) eta **aktinidoek** (90etik 103ra). ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina, seigarren periodoarekin gertatzen den bezala, 5f azpimailaren lehiak eragiten du une horretan f multzoko bigarren trantsizio bikoitzeko seriea agertzea, hots, **aktinidoen** seriea, Th-tik Lr-rako hamalau elementuak dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

7. periodoko elementuak taula periodikoan zazpigarren lerroan ageri diren elementuak dira, **aktinidoak** barne. ETC-entziklopedia

Aktinidoen serieak aktinioaren eta lawrentzioaren artean dauden 15 elementu kimiko barne hartzen ditu. ETC-entziklopedia

Hala ere, lutezioa eta lawrentzioa d blokean dauden arren, ez dira trantsizio-metaltzat hartzen, lantanoidetzat eta **aktinidotzat** baizik, hurrenez hurren. ETC-entziklopedia

Oso gutxi erabilitako formatu zabaleko taula periodikoetan lantanoideen eta **aktinidoen** seriea leku egokian txertatzen da, taulako seigarren eta zazpigarren errenkadetan (periodoak), hain zuzen. ETC-entziklopedia

Lehen elementu transuranidoa da eta **aktinidoen** seriekoa da. ETC-entziklopedia

---

aktinio *(corpusean ez dago; ETCn **47** agerraldi)* *iz* aktinidoen saileko metal erradioaktiboa *(Ac;* at. z. 89).

Aktinioa elementu kimiko bat da, Ac ikurra eta 89 zenbaki atomikoa dituena. ETC-entziklopedia

1903an ohartu zen hiru elementu erradioaktibok (**aktinio**, torio X eta mesotorio I) taula periodikoan erradioaren leku bera zutela, eta, hala, isotopiaren fenomenoa aurkitu zuen. ETC-entziklopedia

1939an, Pereyk frantzio elementua aurkitu zuen, **aktinioa** zeukaten lantano laginak purifikatzerakoan. ETC-entziklopedia

Azkenik, elementu hori aurkitu zuen: **aktinioa**. ETC-literatura, saiakera

-Begira, motel -entzun zion Kontsulak bere buruari esaten-, aurkari Franco edo Hitler edukitzea kontu bat da, baina kontrakoak badira **Aktinioa**, Berilioa, Disprosioa, Niobioa, Paladioa, Praseodimioa... ETC-literatura, saiakera

Atomo bat beste batean erradioaktiboki desintegratzeko prozesuan sortutako "erradioelementu" haiek zituzten izenek berek adierazten zuten zer-nolako ziurgabetasun eta nahasmen zegoen haiei erresuma atomikoan benetan zegokien tokiaz: uranio X, **aktinio** B, torio C. ETC-literatura, saiakera

Jo daiteke laugarren trantsizio-seriea orain hasten dela, 6d azpimaila betetzen hastearekin batera; beraz, **aktinioa** (Ac) 6d azpimailan elektroi bat duela ageri da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aktinografo *iz* argi kopurua neurtzeko tresna, pelikula fotografikoari dagokionez.

Pireliografo edo **aktinografoari** paper-banda kendu, eta berria jarri. Pello Zabala

10 egunetik behin **aktinografoarenak** bidali. Pello Zabala

---

aktinolita *iz* anfiboleen taldeko gaia, tremolitaren antzekoa.

Bi multzo horien artean, egitura eta funtzio ezberdinetako amianto mota ugari dago: antofilita, amosita, krozidolita, **aktinolita** eta tremolita, adibidez; baina munduan zehar gehien hedaturiko amianto mota kristolitoa da. Berria - Ekonomia

---

akto ik **aktu**.

---

aktore *(ETCn **67.827** agerraldi)* **1** *iz* zinema, antzerki eta kideko antzezlan batean pertsonaia bat irudikatzen duen pertsona. ik **aktoresa**; **antzezle**; **antzezlari**; **komiko**; **komediante**; **teatrolari**.

Beti nahi izan zuen **aktore** izan. Fernando Morillo

Jarraian, begietara adi-adi so egin nion, teatro pixka bat eginez, tragedia bat jokatzen ari den **aktorea** banintz bezala. Joan Mari Irigoien

-Aktore adiskide batekin hitz eginda zegoen heriotza antzezteko. Joxean Agirre

Bai, Neoren papera egiten zuen **aktorea** zen Keanu. Antton Olano

Aktorea edo kantantea izatea, eta kontu egin, orduko gure idoloak Espainiako kulturakoak zirela eta 70eko hamarkadako modaren lilurapean bizi ginela. Ana Urkiza

Ez zen beti yiddish antzerkiko **aktore** izan, aldiz, bai Frantzian eta baita Alemanian ere jarduna zen lanean. Koro Navarro

Baina pelikula horretan parte hartu zuen beste neska **aktore** batek laburbildu zuen, ustekabean, zer zen neorrealismoa. Anjel Lertxundi

Baina ez zuen kemenik ukan **aktoreei** errepikarazteko, gain hartu zion ikusiak. Koldo Izagirre

Aktoreren batek gangster-industriako filmean lanik egin nahi ez badu, berehalaxe entzungo du mehatxua: "Kontuz, zure aurpegi eder horretan azidoa eror liteke". Gotzon Garate

Aktore batzuek mozkortiaren imintzioak antzeratzen zituztela zirudien. Juan Garzia

Laburmetraia esperimentalak egin izan ditu, muntaketa, **aktore**, argiztatzaile, zuzendari eta gidoilari lanak bere gain hartuz. Harkaitz Cano

Hirugarren **aktorea**, berriz, Maurice Ronet, aski ezaguna zen beste film frantziar batzuetatik. Pedro Alberdi

Bere irudikoz modelo izateko neurri egokienak gainditurik zeuzkan ilehoriak, eta **aktorea** izateko Hollywood urrutiegi zegoen. Migel Angel Mintegi

Bueno, Laurence Fihsburne hori **aktore** bat da, beltz kankailu sendo bat, pelikulan Morfeorena egiten zuena. Antton Olano

Isiltasunaren bitartez espresatzen ziren bi **aktore** ematen zuten. Anjel Lertxundi

Biziki gogoko izan dut beti samurai filmetako **aktoreen** jokoari horren ongi dagokion formula hau. Joxan Elosegi

Eta, antzokietan, **aktoreren** batek errebolberra ateratzen bazuen, hatzak belarriko zuloetan sartu-sartu egiten zituen eta ez zuen agertokira begiratu ere egiten, harik eta armaren tiro-hotsa aditzen zuen arte. Mirentxu Larrañaga

Baziren antzerkigileak, eta baziren **aktoreak**, antzerki lanak prestatu zituztenak. Felipe Juaristi

Quenu, longaina eta eskularru grisak jantzirik eta arreta handiz orrazturik, **aktoreen** izenak programan bilatzeaz baizik ez zen arduratzen. Karlos Zabala

Aktore zein aktoresa ezagun andana batek begi logaletsuz eta keinu ameslariz begiratzen ziguten. Alberto Ladron Arana

Bertsolaria, trikitilaria, **aktorea**, kantaria kanpoan dabilen bitartean, emazteak etxean egoten dira gehienbat, eta bakarrik. Pako Aristi

Capa hura Frank Capra zinema zuzendariari ostu omen zion eta, enborretik ezpala, Robert izena gogoan ez dudan **aktore** bati. Edorta Jimenez

- Bitxia da zenbat **aktore** sartzen diren apaiz. Lopez de Arana

Molière ere ez al zen **aktorea**? Fernando Rey

Eta baziren batzuk, antzerkigile edo **aktore** izan gabe, egunero antzezten zutenak, gotorlekuan egun bat gehiago iraun ahal izateko. Felipe Juaristi

Hantxe zeuden **aktore** guztiak, babesean eta seguru. Koro Navarro

Hartan parte hartu zuen idazle eta **aktore** honek, zeina zinegotzi izatera ere behin baino gehiagotan iritsi baitzen. Askoren artean

Bazen esatarien artera, eta hauek mikrofonotik jendeari ari zitzaizkiola, estudioa garbitzera sartzen zelakoa egiten zuen **aktorea**. Iñigo Aranbarri

Eta **aktoreek** ere beti jakin dute noski zer nahi duten eta zergatik: galdetu, bestela, eta Hamlet esango dizute guztiek: Hamlet bana. Juan Garzia

Zeinen galdera ederra! Ez nintzen **aktore** bakarra komedia hartan. Joxan Elosegi

Pelikulak egiten hasita ere bazegoen, baina ez zen isiltzen; diruaren aurrean ere ez zen isiltzen eta, badakizu, **aktoreen** kontuak. Unai Elorriaga

2 eragilea.

Aktoreak definitu ondoren, haiekin eragiketak egiten hasiko da orain Euklides. Jon Muñoz

Alegia, teknologia sozialki eraikia da, eta eraikitze-prozesu horretan **aktore** sozial desberdinek (interes eta ardura desberdinekin) hartzen dute parte. Askoren artean

Eta historiak herrestan eramaten ditu gizaldiz gizaldi bai gertakizun publikoak, bai bere **aktoreak**. Esteban Antxustegi

3 irud/hed

Batean keinu bat egiten zuela, bertzean bertze bat; orain makulu bat zerurat altxatzen zuela, orain bertzea, **aktore** ona zen aitona Nikolas, noiz eta bere historiak kontatzen baitzizkigun. Joan Mari Irigoien

Fartsako **aktore** nagusia izanen nintzen! Koldo Izagirre

4 (izenondoekin)

Gure taxi gidariak segurtatu digu Jackie Txan **aktore** famatuak "bat" zenbakia zeukan matrikulazioa milioi bat euro pagatu zuela! Ramuntxo Etxeberri

Konstruktibista sozialen helburua, beraz, gailu teknologiko zehatzen eraketa-prozesuan parte hartuko luketen **aktore** sozialen interes eta harremanetatik abiatuta, teknologiaren konstituzio sozialaren berri ematea zen. Askoren artean

Nire lehen lana, Pantxo Rey **aktore** gazteari elkarrizketa egitea zen. Jasone Osoro

Begi marroiek gona berdea bilatu zutenean usain gozo batek astindu zion sudurra, gizon usaina, airean zebilen izerdi usain gozoa, imajinatzen zituen filmetako **aktore** galaien bular iletsu beltzaranak, zinema aldizkarietako argazkietan agertzen diren horietakoak. Aritz Gorrotxategi

-Bada, nire hipotesia da Auroraren begirada hori, alde batetik **aktore** amateurraren xalotasuna adieraz lezakeena, baliatu egiten duela Rohmerrek, zertarako eta hain juxtu horrexetarako. Iñaki Iñurrieta

Egun **aktore** famatua den gure antzerki irakaslearekin topo egin nuenean, horretaz guztiaz gogoratu nintzen. Iban Zaldua

Dena dela, hiru hauek film hartako **aktore** eskasak baino askoz hobeto mugitzen dira; eta gainera hau ez da filma, hau errealitatea da! Jon Arretxe

Ez al da **aktore** miresgarria, Williams jauna? Mirentxu Larrañaga

Niri anaia hura Alan Ladd zinemako **aktore** ospetsuaren berdin-berdina iruditzen zitzaidan. Pello Lizarralde

Juan Uribe eta Fabio Restrepo "**aktore** naturalak" hautatu ditu Gaviriak protagonista nagusien rolak jokatzeko. Berria - Kultura

Cash gaztearen eta James Deanen arteko uztarketatik aterako litzatekeen figura islatu nahi zuen Mangoldek filmean, eta Joaquin Phoenixen aurkitu zuen **aktore** egokia. Berria - Kultura

Ederra ez ezik, **aktore** ona ere izan behar zuen, dudarik gabe; eta puta galanta, noski. Migel Angel Mintegi

Denbora dezente igaro da orduz geroztik, eta oso famatua egin da, telebistari esker batez ere: ez da batere **aktore** txarra. Iban Zaldua

Bai, jauna, eta **aktore** onaren sona nuen. Juan Garzia

Eta maitasun hori adierazten dutenean -euskarari buruzko maitasuna, esate baterako-, oraindik okerragoa da, **aktore** txar eta erretorikoak ematen dute. Bernardo Atxaga

Lupe Velez, suizidatzeko asmoz barbiturikoak hartu ondoren goragaleak jo eta bere burua komuneko zuloan sartuta hilik aurkitu zuten bigarren mailako **aktore** txikanoa izan zen. Harkaitz Cano

Aktore handia eta bere zaindariak engainatzen oso trebea dela erakusten du Donatienek. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

- Begira neska **aktore** pinpirin hauek! Lopez de Arana

Aktorea zen, antza, Italian, teatroan, **aktore** ona, antza, baina ez zekien isilik egoten, badakizu. Unai Elorriaga

Garai hartako film komikoetan protagonista baserritar inozo eta trakets bat izaten zen sarri askotan, hirian edo gizartearen goi-mailako giroan dena aldrebes egiten zuena (Bourvil **aktore** komikoaren paper tipikoak). Joseba Urteaga

Egunean bertan erosiz eta salduz aritzen direnak), inbertsio eta pentsio funtsak dira **aktore** printzipalak. Iñaki Heras

Ruche jaunak aurrera segitu zuen, bikaintasunez, hondamenak hondamen antzezten jarraitzen duten **aktore** onek bezala. Jon Muñoz

Zer loria De Funes **aktore** ospetsuaren ziminokeriak txineraz entzutea! Ramuntxo Etxeberri

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dekoratu itogarri bat, **aktore**-zuzendaritza oso estrabertitu bat, eta irudia etengabe argitasun eta iluntasunezko sare edo hesi batean, pertsonaiak barruan hartzen eta jaten dituen sare batean bezala, banatuz. Josu Zabaleta

Gisela atsegin hark, bere **aktore** aurpegiarekin, ez zuen tutik ulertzen nire purrustadaz. Fernando Rey

The Last Picture Show filmarekin hasi zuen **aktore** ibilbidea 21 urterekin, ordutik hamaika pelikulatan hartu du parte. Berria - Kultura

Ofizialek eta azpiofizialek esanak esan, bost axola zitzaizkigun guri gerrako lubakietako nekaldi eta arriskuak, sinetsita baikeunden gerra-entsegu bat baino ez ginela antzezten ari, **aktore**-mozorroan. Mirentxu Larrañaga

Eta asko idazten zituen egunero eta gero **aktore** keinuak eginez irakurtzen zizkidan ganbaran, eta nik txalotu egin behar nuen. Pello Lizarralde

Harenera bildu ohi diren beste asko bezala: intelligentsia paristar kutsukoa, unibertsitate jendea, **aktore**-ikasleak... Bere legenda egina dauka emakumeak, gaueko erreginarena. Iñaki Iñurrieta

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abdul gauza asko izan zen bere bizitzan: suhiltzaile, porno **aktorea**, gigolo, postari, organista, aseguru-saltzaile, bortxatzaile, poeta, exhibizionista, diseinatzaile, maisu... Karlos Linazasoro

Eta antzerkietan pantomima **aktoreek** hitzik gabe istorio osoak dantzaz eta pantomimaz kontatzen eta adierazten dizkigute. Imanol Unzurrunzaga

Suess Aja Cawa denbora haietako zine-**aktore** oso sonatua zen. Fernando Rey

7 *aktore gonbidatu* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Aktore gonbidatu gisa etorri naiz. ETC-prentsa

Unicreditorena ikusita, Bankinter (%1,09) **aktore gonbidatuaren** rolean jarri zen, irrifartsu. ETC-prentsa

Aktore gonbidatua: Maria Alonso del Val. ETC-prentsa

Denboraldian zehar hainbat **aktore gonbidatu** agertu ziren, besteak beste Martxelo Rubio, Edurne Agirrezabala eta Karmele Aranburu. ETC-entziklopedia

2001ean The Practice telesailarengatik **aktore gonbidatu** onenaren Emmy saria irabazi zuen eta 2009an Lost telesailarengatik bigarren mailako aktore onenaren beste Emmy sari bat. ETC-entziklopedia

8 *aktore lan*

Azken ordua arte **aktore lanetan** aritu zen Jean Gabin, nahiz eta azken filmeen maila 30 eta 40ko hamarkadetakoen aldean baxua izan. Berria - Kultura

Azkenik, **aktore-lana** da antzokira joateko zioetariko bat. Berria - Kultura

Aliatuek askatutako Erromako kaleetan jarri zituen kamerak, askatasunez, bitarteko eskasekin, erresistentziaren inguruko istorioen protagonistak **aktore lanetan** zirela. Berria - Kultura

- Ruthek bere **aktore-lana** beste ardurarik ez dik. Lopez de Arana

Baina ez da samurra agure matxino hau mendean hartzea, eta, arkatza eta paperaren faltaz, ideia jenial bat du: espetxe barruan teatro emankizunak gertatu eta antzeztea, berak eta beste kartzela-kide batzuk **aktore lanetan** jardunez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zinean neska mordoa daude **aktore-lanetan** ez dakitenak. Fernando Rey

1799an beteta ikusi zuen bere amets handienetarikoa: bere Oxtierneko kondea edo libertinajearen ondorioak Versallesko "Theatre de la Société Dramatique" taldearen eskutik antzeztua ikustea, bera **aktore lanetan** zela, gainera. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

9 *aktore nagusi*

- Ez da, noski, **aktore nagusiarentzako** papera, baina aktore moldaerraza eta fina izateko ospea lortu nahi duzula kontuan hartuta, ez dago paper hoberik antzezlanean. Lopez de Arana

Arazoaren kontzientzia hartze garrantzitsua dago, eta urrats bat egitea eta agertzea erabaki duten aktore asko daude, nahiz eta pixka bat frustratuta nagoen, **aktore nagusiak** ez direlako iristen. Berria - Euskal Herria

Zuzendariaren lana ez ezik, **aktore nagusien** lana ere laudatu dute kritikariek, Gael Garcia Bernalena bereziki. Berria - Kultura

Identifikazioa handitzeko edo, Aranburu **aktore nagusia** plano guztietan dago. Berria - Kultura

Aktore nagusi Burt Lancaster zuen film batez ere oroitu nintzen gau hartako insomnioan. Juan Luis Zabala

Dekorazioa dotoreagoa da, zuzendaritza-lana profesionalagoa, eta **aktore nagusia** berria. Oskar Arana

10 *aktore pornografiko* *(corpusean ez dago; ETCn **200** agerraldi)*

Aspaldi honetan, ordea, koadrilako afarietan ikazkin arlotearen aipuaren arrazoia beste bat izaten zen, ezkondutakoek berriro jaiotzekotan Olentzero izatea gustatuko litzaiekeela defendatzen zutelako, eta beste batzuk, berriz, **aktore pornografikoa** izanda konformatzen ziren. ETC-literatura, saiakera

Euskal **aktore pornografikorik** ez dagoela ere badio, eta filmak bikoiztu egin behar izaten direla. ETC-prentsa

EITBren webgunean tarte berezitua izango du programak, Eitb.eus/sexsua helbidean, eduki osagarriekin; adibidez, **aktore pornografiko** gay baten eta emagin baten elkarrizketak, osorik. ETC-prentsa

Carmen Moore, estatubatuar aktorea eta modelo eta **aktore pornografikoa** (j. 1986). ETC-entziklopedia

Aubrey Kate (Las Vegas, Nevada, Ameriketako Estatu Batuak, 1992ko azaroaren 7a) estatubatuar emakumezko **aktore pornografiko** transexuala da. ETC-entziklopedia

11 *antzerki aktore* ik **antzezle**.

Ateak zabal-zabalik zeuzkan zinema ala **antzerki aktoreentzat**, enpresari boteretsuentzat, familia dirudun premuentzat, politikarientzat, Hollywood-etik bisitan zebiltzan izar amerikarrentzat... Ramuntxo Etxeberri

12 *emakume aktore* *(ETCn **108** agerraldi; orobat **aktoresa** ETCn **365** eta **emakumezko aktore** ETCn **1.419**; cf. **gizonezko aktore** ETCn **870** eta **aktore** ETCn **67.827** agerraldi)* ik **aktoresa**.

Emakume aktore bikainak alferrik galtzen dira egunero. Karlos Zabala

Les invasions barbares filmak Cannesen bi palmorri jaso zituen, bata **emakume aktore** onenarena eta bestea, berriz, gidoiarena. Berria - Kultura

Emakume aktoreak ohean benetan gertatzen zaienarekin zerikusirik ez duten rol sexualak jokatzera behartzen dituzte zuzendariek - gizasemeek -. Luis Elberdin

Zinemara joaten baginen eta **emakume aktore** bat ikusten bagenuen, etxera iritsitakoan osabak zalapartari konbentzitu nahi gintuen Australiako izebak aktore hark baino hanka ederragoak zituela. Pello Lizarralde

13 *emakumezko aktore* *(ETCn **1.419** agerraldi; orobat **aktoresa** ETCn **365** eta **emakume aktore** ETCn **108**; cf. **gizonezko aktore** ETCn **870** eta **aktore** ETCn **67.827** agerraldi)* ik **aktoresa**.

"Gidoiak esijitzen badu besterik ez naiz biluztuko", errepikatzen zuten loroen moduan **emakumezko aktoreek**; kontua zen, beti esijitzen zuela. Xabier Mendiguren Elizegi

Emakumezko aktore onenen ataletan ere pronostiko guztiak bete ziren, eta Charlize Theronek Monster-en eta Renee Zellgewegerrek Cold Mountain-en egindako lana saritu zuen Akademiak. Berria - Kultura

Loli Astorekak, azken urteetan Goenkale telesaila eta Ramon Barearen Pecata minuta eta El coche de pedales egin dituen aktoreak, **emakumezko aktoreek** beren bidean topatzen dituzten traba eta oztopoez mintzatu zen. Berria - Kultura

Emakumezko aktore onena, Imelda Stauton aukeratu zuten Vera Drake-eko lanagatik. Berria - Kultura

14 *zinema aktore*

Eta Hamleten aktorea aipatu dugunez, casting alorrean sartuko gara, zeren eta Marisa Paredes oso aktore ezaguna da zinema espainiarrean figurante mailan ene uste apalean, baina edozein modutan ere bai bera bai Fernandez **zinema-aktoreak** dira eta eszena gainean beste parametro batzuekin jokatu beharra dago. Berria - Kultura

Zaintzaile batek ere argibideak nahi zituen: Miranda **zinema aktorea**? Pello Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitzpea goenaga aktore (3); **aktore argentinarrak** (3); **aktore bakarra** (4); **aktore bat** (12); **aktore batek** (11); **aktore baten** (7); **aktore berri** (3); **aktore berriak** (3); **aktore dramatiko** (3); **aktore ere** (3); **aktore estatubatuarra** (11); **aktore estatubatuarrak** (4); **aktore eta** (44); **aktore eta zuzendari** (4); **aktore eta zuzendariak** (4); **aktore ezagun** (5); **aktore ezaguna** (5); **aktore famatua** (3); **aktore frantziarra** (7); **aktore frantziarra hil** (4); **aktore garrantzitsua** (3); **aktore gazte** (4); **aktore gisa** (14); **aktore gisa lan** (3); **aktore guztiak** (7); **aktore guztiek** (4); **aktore handi** (3); **aktore handia** (5); **aktore izan** (10); **aktore lana** (19); **aktore lana da** (5); **aktore lana ere** (3); **aktore lanak** (5); **aktore lanak egin** (3); **aktore lanaren** (5); **aktore lanetan** (17); **aktore moduan** (8); **aktore nagusi** (12); **aktore nagusia** (18); **aktore nagusiak** (22); **aktore ona** (12); **aktore ona naiz** (3); **aktore onena** (6); **aktore onenaren** (38); **aktore onenaren atalean** (3); **aktore onenaren oscar** (6); **aktore onenaren sailean** (3); **aktore onenaren saria** (14); **aktore onenarena** (7); **aktore onenari** (6); **aktore onenen** (5); **aktore oso** (3); **aktore ospetsua** (7); **aktore ospetsuaren** (3); **aktore politikoen** (3); **aktore profesionala** (3); **aktore profesionalak** (3); **aktore sozial** (3); **aktore talde** (8); **aktore taldea** (5); **antzerkiko aktore** (3); **ari den aktore** (3); **ariko dira aktore** (3);

baina aktore (3); bat aktore (4); batzuk aktore (3); bere aktore (3); beste aktore (5); bi aktore (8); bigarren mailako aktore (16); da aktore (6); den aktore (8); dira aktore (12); dira aktore nagusiak (4); dira filmeko aktore (3); ditu aktore (8); du aktore (6); du aktore nagusi (3); duen aktore (6); dute aktore (4); duten aktore (6); edo aktore (3); emakume aktore (5); emakumezko aktore (24); emakumezko aktore onenaren (12); ere aktore (6); eta aktore (40); eta aktore lana (3); eta gizonezko aktore (4); filmeko aktore (8); filmeko aktore nagusiak (5); gizonezko aktore (25); gizonezko aktore onenaren (11); gizonezko aktore onenarena (3); goenaga aktore (3); hainbat aktore (5); hiru aktore (3); hollywoodeko aktore (3); honetako aktore (3); ikuslea aktore (3); izan zen aktore (4); mailako aktore (17); mailako aktore onenaren (6); mailako emakumezko aktore (4); mailako gizonezko aktore (4); neska aktore (4); pastoraleko aktore (3); zen aktore (13); zenbait aktore (5); zine aktore (3); zinemako aktore (6); ziren aktore (3); zuen aktore (7)

agirre aktorea (3); aktorea atzo (3); aktorea atzo hil (3); aktorea da (5); aktorea ere (4); aktorea eta (12); aktorea ez (3); aktorea hil (7); aktorea hil da (5); aktorea izan (5); aktorea izan zen (3); aktorea izango (4); aktorea zen (6); aktoreak bere (7); aktoreak bezala (7); aktoreak dira (11); aktoreak egin (4); aktoreak ere (10); aktoreak ere ez (3); aktoreak eta (17); aktoreak ez (5); aktoreak izan (4); aktoreak jokatzen (3); aktoreak jokatzen du (3); aktorearekin batera (3); aktorearen arabera (3); aktorearen eta (3); aktoreei dagokienez (9); aktoreek beren (4); aktoreek parte (4); aktoreekin batera (5); aktoreekin eta (3); aktoreekin lan (4); aktoreekin lan egitea (3); aktoreen artean (5); aktoreen arteko (4); aktoreen batasunak (6); aktoreen eta (4); aktoreen lana (11); aktoreen ondoan (3); aktoreen sindikatuak (3); aktoreez gain (3); aktorerik onena (8); baita aktoreak (3); benetako aktoreak (3); beste aktoreen (3); bi aktoreek (3); castro aktoreak (3); da aktorea (3); daude aktoreak (3); dira aktoreak (6); diren aktoreen (4); ditu aktoreak (3); dute aktoreek (5); duten aktoreak (3); egiten zuen aktorea (3); eko aktoreak (3); eta aktorea (6); eta aktoreak (18); eta aktorearen (5); eta aktoreek (4); eta aktoreekin (3); eta aktoreen (10); euskal aktoreak (3); euskal aktoreen (14); euskal aktoreen batasunak (6); gainerako aktoreak (5); huston aktorearen (3); martinez aktoreek (3); munduko aktorerik (3); ramon agirre aktorea (3); ramon castro aktoreak (3); taldeko aktoreak (3); zazpi aktoreak (3); zen aktorea (3); zinemako aktorea (3); zuen aktorea (10); zuen aktoreak (9); zuen aktorearen (3)

---

aktoresa *(ETCn **365** agerraldi; orobat **emakumezko aktore** ETCn **1.419**, **emakume aktore** ETCn **108** eta **aktore emakume** ETCn **17**; cf. **gizonezko aktore** ETCn **870** agerraldi eta **aktore** ETCn **67.827** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian ez da **aktoresa** agertzen) iz* emakumezko antzezlea; emakumezko aktorea. ik **aktore**.

Osaba Cesare gero **aktoresa** batekin ezkondu zen, eta hori tragedia handia izan zen gure amonarentzat. Fernando Rey

Pelikula horretan parte hartu zuen beste **aktoresa** batek laburbildu zuen, ustekabean, zer zen neorrealismoa. Berria - Kultura

Nataliak beste itxura bat zuen, alaiagoa edo ukiezinagoa, Hollywoodeko filmetako **aktoresa** bat bailitzan. Aritz Gorrotxategi

Aktore zein **aktoresa** ezagun andana batek begi logaletsuz eta keinu ameslariz begiratzen ziguten. Alberto Ladron Arana

Kontatzen du, behin batean, Julio "Indio" Perezek gutun bat nola erakutsi zion, esanez, arrunt maitemindua daukan **aktoresa** famatu batena zela: -"Ikustak... ezkontzeko eskatzen zidak". Patziku Perurena

Dorothy Trotter nuen gogoan, zineko **aktoresa** handia; nire etxekoak nituen gogoan. Fernando Rey

Zaldiari eutsi eta handik gutxira, berriz, Raquel Welch azaldu omen zen zaldiaren atzetik korrika, ordu hartan ospe mamitan zebilen Hollywoodeko **aktoresa**; bikini beltz batez jantzita azaldu ere. Bernardo Atxaga

Eta atzera ere dantzaldiak, komediak, amodioak eta orgiak **aktoresekin**, dantzariekin, prostitutekin eta hainbat maitalerekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Antzerki-**aktoresa** bat, garrantzi handiko paper bat jokatzeagatik, enpresari zahar eta nardagarri batekin moldatzen zela; andre bat, itxuraz prestua, zita-etxe batera joaten zela; horrek guztiak txoratu egiten zuen. Josu Zabaleta

Zine-**aktoresa**, 1914an jaioa Bolonian. Fernando Rey

Halaxe dio deitzen, nonbait Jeromeren amari 1943ko zine arrakastarik handiena izan zen izen bereko filmeko protagonista-**aktoresarekin** zenbait antz atzematen omen zion eta. Pablo Sastre

Egeak, musikari eta **aktoresa** lanak eginez, ateratzen zuen bizimodua, Parisko antzoki batean, konpainia txiki batean, kamarako musika eta opera piezak jotzen zituen talde batean. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aktoresa bat (5)

---

aktu 1 *iz* pertsona batek gauzaturiko egintza edo lana.

Tristurazko afektua, ordea, **aktu** bat da, eta **aktu** hau, horrenbestez, ez daiteke izan betegintzarre tipiago batera iragaiteko **aktua** baizik, hau da, gizakiaren iharduteko ahalmena tipitzen edo eragozten duen **aktua**. Piarres Xarriton

Emakumeak larrutarako direlako, beste deusetarako ez, horixe zen arrazoia: trikko-trakko machen, horrela deitzen zion Tinok amodiozko **aktu** ezti-eztiari. Fernando Rey

Materia eta forma, potentzia eta **aktua**: iraganeko kontuak dituk horiek, Joanes...! Joan Mari Irigoien

2 *aktuan*

Aktuan den adimenaz hitz egitean hemen, ez dut horrengatik potentziazko zerbait adimen onartzen. Horra zergatik, Jainkoaren guztiahalduntasuna betidanik **aktuan** dagoena izan den eta zergatik betiko halaxe iraunen duen. Piarres Xarriton

Izpirituak halako betierekotasun baten arabera ezagutzen duen edozein gauza ez du hori ezagutzen Gorputzaren presenteko existentzia **aktuan** pentsatzen duelako. Piarres Xarriton

Aktuan existitzen den gauza singular baten ideiak Jainkoa du bere kausa. Piarres Xarriton

Bestelakoa da, ordea, borobil baten edo triangelu baten existitzeko ala ez existitzeko arrazoia, hori ez baitator haien izaeratik, izaera gorputztun osoaren ordenatik baizik; ordena horren ondorio izan behar da, alabaina, delako triangelua ala nahitaez **aktuan** existitzea ala **aktuan** ezin existitzea. Piarres Xarriton

Giza Izpirituaren **aktuzko** izatea lehenik osatzen duena da, beraz, **aktuan** izaten den gauza singular baten ideia. Piarres Xarriton

3 *aktuz*

Nahiz adimenetik landa ez diren **aktuz** existitzen, haien esentzia bizkitartean beste batengan sartzen ahal da eta, horrela, bitarteko horri esker uler daiteke. Piarres Xarriton

Aktuz existitzen den gauza singular jakin baten ideia besterik ez da giza Izpirituaren **aktuzko** izatea lehenik osatzen duena. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aktuan dagoen (3); **aktuan existitzen** (20); **aktuan existitzen balitz** (3); **aktuan existitzen den** (12); **aktuz existitzen** (3); **proposizioa aktuan** (3)

---

aktual *izond* hitz egiten den mementuan dena edo gertatzen dena, oraingoa.

Deleuzek kristal-irudiaren kontzeptua proposatzen du, honi dagokionez, metaforikoki irudi **aktual** bat eta irudi birtual bat (bat orainaldian, bigarrena, "haren iragan garaikidea", iragana orainaldian) batera direla adierazteko. Josu Zabaleta

Mandelbaumek, aldiz, artea erakusten ez diren ezaugarrien arabera defini daitekeela zioen; nabariak ez diren ezaugarriak, beharbada erlaziozkoak, artelana entzutegi **aktual** edo posible batekin elkartzen dituena. Askoren artean

Jatorrizkoa ez den bekatu oro **aktuala** dela edo oraingoa, eta, bestalde, heresia dela erratea bekatu guztiak berdinak eta maila berekoak direla. Piarres Xarriton

Gauza bakoitzak bere izanean irauteko egiten duen ahalegina ez da gauza horren esentzia **aktuala** besterik. Piarres Xarriton

Klasikoak itzultzea ondo dago, baina niri gaur egungo liburuak itzultzea gustatuko litzaidake, **aktualak**. Berria - Kultura

Horiek horrela, objektu materialak existitzen direla ustea sentimen-datu batzuen esperientzia dugula ustea besterik ez da, izan daitezen **aktualak** edota posibleak. Askoren artean

---

aktualitate 1 *iz* denbora edo memento aktuala.

Ez da sekulan inguruan gertatzen zaionari interesatu, ikasketak ez zituen gustukoak eta are gutiago gai literarioak eta giza-zientziak, **aktualitatea** ez du jarraitzen eta Sophie-rekin ez da sekulan politikaz eta filosofiaz mintzatu. Eneko Bidegain

Aktualitatea hurbiletik eta dinamikoki segitzen duen saio bat. Herria

Bertsolariaren ekarpena, ekarpenik badu, horixe da hain zuzen, nahastu egiten duela, mailak nahasten dituela: **aktualitateko** gai sozialak, politikoak, sexualak, entzuleriari egiten dizkion erreferentziekin, guztia aipamen pertsonalez zipriztindurik eta bat-batean ari diren kideen mezuekin lehian. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hala eta guztiz ere, nolaz eta **aktualitateari** oso lotua bizi naizen, zera adierazi nahi dizut, zure deskribapena ez dela oso ondo egokitzen gaur egungoarekin. Bernardo Atxaga

Maite Artola Euskadi Irratiko Mezularia saioko aurkezleak jaso du irratiko Argia saria, arratsaldero **aktualitatearekin** lotutako saio "erakargarria" gidatzeagatik. Berria - Euskal Herria

Iparraldean **aktualitatean** den gaia kanpaina hori da. Berria - Euskal Herria

Bere mezuak beti **aktualitatean** izaten segitzen du. Berria - Kultura

Espainiako **aktualitatea** errepasatu zuten, luze, periferietako uneko egoerei arreta berezia jarriz. Jon Alonso

Komunikazio zirkuitu alternatibo gisako bat da bertsolaritza, nazio, estatu, eskualde, herri edo mundu mailako **aktualitateari** hausnarraldia ematen dion eremu bat, poetikoki batzuetan, ironikoki edo umorearen bila besteetan. Erran behar da azken urteetako **aktualitate** gordina zela hor erreferentzia, eta gisa horretan agertuak, surrealista ematen zuen; are errealistago orduan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Jendea hagitz minbera baita **aktualitate** zaratatsuenaren mamuekin, bi begietatik sartzen dizkioten zerekin (**aktualitatea** -eta paisajea- begietatik sartzen da nagusiki). Iñaki Segurola

Inguruko **aktualitate** garaikidea baino askoz ere gertuago. Juan Luis Zabala

14 mende pasatu eta gero, egungoa dirudi, orduan egindako lan ikusgarri haiek **aktualitate** betikoa izan dutelako berekin. Pello Zabala

"Historia eleberria edo **aktualitate** eleberria da", azaldu du. Berria - Kultura

---

aktualizatu, aktualiza(tu), aktualizatzen du *ad* aktual bihurtu; eguneratu.

Berari esker, sortzetik dugun endelegu potentziala **aktualizatu** egiten dugu. Xabier Kintana

---

aktualizazio *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **eguneratze** agertzen da) iz* aktualizatzea.

Nik obra espazio horretan zentzu argi batekin sartu nahi nuen, baritonoaren ahotsaren bidez otoitzaren **aktualizazioa** bilatuz. Berria - Kultura

---

aktuarial *iz* aseguru erakunde baten aholkulariari dagokiona.

Tomek ez beste inork oroituko zukeen egitate ilun horietako bat zen, edo berari bakarrik ardura izango zitzaiokeen horietakoa, baina nik neuk bizitza erdia taula **aktuarialak** aztertzen eta hainbat lanbidetako heriotza-tasen gainean pentsatzen eman dudanez, nahiko interesgarria iruditu zitzaidan kontu hura. Oskar Arana

---

aktuario *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi) iz* aseguru etxe bateko aholkularia; epaile baten erabakiez fede ematen duen pertsona.

Banako bakoitzak "bizi-itxaropen" jakin bat du, eta **aktuario** batek zenbatekoa den kalkula dezake, errore-probabilitate jakin batekin. ETC-literatura, saiakera

Eta hark bazuen experienzia gisa hartako abereekin eta haragitako aretzeekin, bildots gizenekin eta ahari bilotsuekin, zenbait urtez izana baitzen **aktuario** Joseph Cuffe jaunarendako. ETC-literatura, saiakera

Aseguru-etxeetan **aktuario** izeneko langileak dituzte. ETC-prentsa

Banaketak behin betiko onetsi ondoren, interesdun bakoitzari emango zaizkio banaketan adjudikatu zaiona eta jabetza-tituluak; aurretiaz, **aktuarioak** jabetza-tituluetan ezarriko ditu adjudikazioaren ohar adierazgarriak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Banaketak behin betiko onetsi ondoren, interesdun bakoitzari emango zaizkio banaketan adjudikatu zaiona eta jabetza-tituluak; aurretiaz, **aktuarioak** jabetza-tituluetan ezarriko ditu adjudikazioaren ohar adierazgarriak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Legeak eskatutakoaren arabera taxututako ikuskapen-aktak froga-balioa izango du, akta egitea eragin duten eta **aktuarioak** pertsonalki egiaztatu dituen egintzena, non eta ez den kontrakoa egiaztatzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala ere, beste mota bateko auditoretzak ere burutzen dira, besteak beste, adituaren txostena, enpresa aseguratzaileen ezbeharreko likidezia eta **aktuario** kalkuluak. ETC-entziklopedia

Lanbidez **aktuarioa**, EAJren zerrendetan Espainiako Diputatuen Kongresuan egon zen. ETC-entziklopedia

---

aktuatu, aktua(tu), aktuatzen *(ETCn **57** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jardun** eta **jokatu** agertzen dira)* du *ad* aritu; jendaurrean jardun.

Rolak jokatzeko, **aktuatu** beharrean zegokion pertsona bikalatzen zela esaten zuen. Berria - Kultura

Inpresioa hori da behintzat: bere baitatik kanpo atera eta bere gorputza **aktuatzen** ikus dezakeenarena. Pako Aristi

Antza, Mariah ez zen detaile horretaz ohartu, beti legez **aktuatzen** baitzuen, mundua borobila zela jakintzat emanez, alta nik banekien mundua laua zela eta ertzera gehiegi hurbiltzen banintzen erori egingo nintzela. Pablo Sastre

Torturan **aktuatzen** ere jakin behar dela, esana zidaten. Koldo Izagirre

---

aktuazio *(ETCn **168** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jokaldi**, **jardun**, **jardunaldi**, **emanaldi**, **emankizun** eta **funtzio** agertzen dira) iz* emanaldia, joaldia; jarduera.

Aktuazioa bukatutzat eman duenean, soinua berriz ere bere tokian utzi eta bisitariak agurtu ditugu. Xabier Etxabe

Esate baterako, Victor Ullateren baletaren **aktuazio** batengatik ez kontraturik ez fakturarik ez zegoela eman zuen aditzera Mendibek. Berria - Kultura

Hurrengo egunetan era guztietako iritziak entzun nituen nire agerpenari buruz, e-mailak ere jaso nituen, eta bat-batean ideia bat hasi zen beste guztiei gaina hartzen, eta ondorengo asteetan ere, nire **aktuazioaren** ezustekoa baretu samarra zegoenean niregana zerbait esatera hurbiltzen zirenak ideia hori azpimarratzera, nabarmentzera eta sendotzera etortzen ziren. Pako Aristi

Bere **aktuazioa** da, hain zuzen, pertsona. Juan Garzia

Dodovek egin zion ebakuntza, arrosak kimatzen aritzen zen maitasun berberaz, eta haren barruan ezkutuan zegoen bideoan ikusi ahal izan genuen, Anaia Nagusi batean bezain ongi edo lizun, geure **aktuazio** tristea, geure dramatizazio okaztagarria, geure mixeriarik gorriena. Karlos Linazasoro

Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak Usurbilgo Urbil Merkataritza Zentroan egiten ari diren **aktuazio** sorta gaurko eta biharko emanaldiekin bukatuko da. Berria - Kultura

---

akuaforte *iz* pintura edo grabatu teknika baten izena; teknika horrekin onduriko margolana.

Akuafortea grabatu teknika bat da, eta horixe egin zuen idazle argentinarrak bere idatzietan, hots, zertzelada batzuen bidez erretratu bat atera. Berria - Kultura

Hator Pirouette kalearen **akuafortea** ikustera. Karlos Zabala

Akuafortea, urtinta edo urkolore teknikak erabili zituen, batez ere. Berria - Kultura

Akuafortearen teknika hobetu zuen eta eragin handia ukan zuen geroko grabatzaileetan. Koldo Izagirre

N-232 errepidean bi kamioiek elkar jo zutenean bietako batek zeramatzan substantzia arriskutsuak errepidera erori ziren: mila litro soda kaustiko eta 40 litro **akuaforte**. Berria - Euskal Herria

---

akuamarina *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi) iz* berilo mota gardena, bitxigintzan oso preziatua dena.

Zure emazteak soineko gris-urdin bat zeraman, eta brillantez eta **akuamarinez** egindako belarritako batzuk. ETC-literatura, saiakera

Ikusi nahi lukeena jotzen du begiz batzuetan, txorimalo baten uren gatza erdibituz, Jainkoaren aurpegi **akuamarinoa**, itsasontzi hura, belaontzi baten kirrinka zuri salbatzailea. ETC-literatura, saiakera

[...] sikiera edukiko banu eraztun bat nere horoskopo-zeinuaren harribitxiarekin **akuamarina** polit bat ea engainatzen dudan bat erosteko eta urrezko besoko bat [...] ETC-literatura, saiakera

Sukaldean **akuamarina** koloreko arasak eta eliza gotikoak ziruditen armairuak logeletan. ETC-literatura, saiakera

Pitin bat ireki zituen **akuamarina**-koloreko bere begitxo lausotuak. ETC-literatura, saiakera

Hala ere, eta instalazioa minimoa bada ere, bi elementuk hausten dute espazio neutro baten sentsazioa: batetik, lan horien koloreak -urdin bizia, bioleta, berde **akuamarina**, gorria...- ez datozelako inolaz ere bat ikuspegi minimalista batek eskatuko lukeen soiltasunarekin. ETC-prentsa

---

akuarela **1** *iz* pintura teknika, paperean eta kartoian egiten dena, uretan disolbatzen diren koloreak erabiltzen dituena.

Natura hil haiek, kiribilez eta arrosetoiz apaindurik, hain ziren samurrak, non haragi gordinek konfituraren tonu arrosa hartzen baitzuten, **akuarela** baten antzo. Karlos Zabala

Hormetan hiru lauki abstrakto kaskar edo, gehienez ere, lekuan lekuko paisaia azkarren bat, **akuarelaz** egina jeneralea. Hasier Etxeberria

Nire portreta **akuarelaz** egina kausitu nuen papera erantzi eta gero. Xabier Montoia

Margotu ahal izan zuen gauza bakarra Auschwitzeko amesgaiztoetako paisaia hura izan zen, perspektiba eta angelu desberdinetatik, tamaina ezberdinetan, mihisearen zein paperaren gainean, olioz eta **akuarelaz** eta argizariz, zabarki edo perfekzio osoz. Iban Zaldua

Egun epel zoragarria, gardena eta argitsua; zuhaitzen artean armiarma sare ixpien modukoak zebiltzan hegan, aire lehor eta garbiari dirdaia zerion eta gauza guztiei esmalte fin eta leuna ematen zien aire hark, halako eran non ostertzean ageri zen guzti-guztiak **akuarelaz** edertua ematen baitzuen. Ander Irizar

2 teknika horrekin onduriko margolana.

Akuarelen erakusketa. Herria

Irail goiza irudikatzen zen han, eta **akuarelaren** margoak irudiaren ertzetatik ihesi zihoazen, zirrararen zirrarak eskua dardarati bilakatu izan balio bezala artistari. Mirentxu Larrañaga

Euskal Herria nola ikusten duten, 5 artistek erakutsiko digute beren marrazki eta **akuarelekin**. Herria

Sendagileak **akuarelak** margotzeko pintzeltxo bat atera zuen patrikatik. Josu Zabaleta

Ama Doloretakoaren **akuarelazko** kopia bat, begi larriak zeru hotzerantz so zituela, bikain, eta malko mingotsak masail zurbil-zurbiletan behera zerizkiolarik etengabe. Mirentxu Larrañaga

Hormetan, hainbat garagardo etxek oparitutako ispiluak eta auzoko artistek eginiko **akuarela** txikiak. Aritz Gorrotxategi

Denboran atzera eginez gero, ordea, histu egiten zitzaizkion koloreak, bizitasuna galtzen zuten, **akuarela** gris kolorgeen antza hartzen zuten irudiek, zuri-beltzeko argazki zaharren tankera. Imanol Zurutuza

---

akuarelista *iz* akuarela teknika erabiltzen duen margolaria.

"Beatrizenean" 45 euskal **akuarelistaren** obrak paratuak dituzte. Herria

---

akuario *(orobat **akuarium** eta **aquarium**)* **1** *iz* beirazko ontzia, uretako animaliak eta landareak bizirik gordetzeko erabiltzen dena; uretako animalia biziak erakusteko prestaturiko eraikina.

Gau hartan **akuario** batean nengoela egin nuen amets, eta norbaitek arrain abisalen gunera eraman ninduela. Bernardo Atxaga

Salan **akuario** bat zegoen. Joseba Sarrionandia

'Akuarioan arrain bakarra triste bizi da eta,' esan zidan, 'gusturago dago ispiluarekin, bere burua ispiluan ikusiz konpainian sentitzen delako'. Joseba Sarrionandia

Erakusleihoko **akuarioan** igerian gelditzeke zebiltzan bi arrain gorriei. Erakusleihoko **akuarioan** igerian gelditzeke zebiltzan bi arrain gorriei. Karlos Zabala

Ezkaratz erdian kristalezko kabinatxoa bazegoen; argiaren eraginez, atezainak **akuarioko** paretaren aurka oldartzen den marrazoa irudi zuen. Jon Alonso

Unetxo bat eman zuten **Akuarioaren** aurrean, badiari begira. Lopez de Arana

Akuarioko irteera aurrean dauden eskaileretatik jaistean. Fernando Morillo

Urdai saltzaile ederra makurtu eta irribarre egin zien adiskidetsu erakusleihoko **akuarioan** igerian gelditzeke zebiltzan bi arrain gorriei. Karlos Zabala

Antzeko bareak heldu zidan oraintsu arte Donostiako **Aquariumean** bizi ziren bi marrazoen, Txuri eta Urdin-en istorioa irakurri nuenean.Balea baten hezurduraren flasha **akuariumeko** sala nagusian: bere birikak. Iñigo Aranbarri

Akuariumeko isiltasuna, ametsetako irudiak. Pablo Sastre

Aurpegia, begi handi-handiez eta hezur-koloreko betaurrekoez hornitua, igerian zebilkion jatetxeko kean zehar, **akuario** lauso bateko arraina bezala. Lopez de Arana

Bertan murgilduta, argiek indarge egiten zuten dir-dir, aurpegien soslaiak agertu, hurbildu eta aienatu egiten ziren, arrainak **akuario** lupeztuan bezala. Lopez de Arana

Akuario mugagabe batean murgildua sentitu zen. Fernando Morillo

Legatzari hamalau hilabetez bizirik iraunaraztea lortu dute Donostiako **akuarioan**. Berria - Gaiak

---

akuarium ik **akuario**.

---

akuatiko *izond* urekoa, urari dagokiona. ik **ur 4**.

Gune **akuatikoak** mehatxatuagoak dira. Berria - Harian

Nire lehenengo edo hasierako geografia berdea zen eta **akuatikoa**, erreka handiaren ertzean bizi bainintzen. Ana Urkiza

Karioxeago diren zonbait aktibitaterentzat, parte hartze gehigarri bat galdegina izanen da (VTT, parko **akuatikoa**, raftinga, zaldia, zuhaitzetako ibilaldia, animalien parkorat

ateraldia, bowlinga). Herria

'Ez da euskaldunen gauza gerra hau!' errepikatzen zuen, bere betaurrekoen kristal **akuatikoak** paineluaz garbitzean. Joseba Sarrionandia

---

akuedukto ik **akueduktu**.

---

akueduktu *(orobat **akuedukto** g.er.)* **1** *iz* ubidea.

Azkenean erakutsi digute Erroma zaharraren herexak: lehengo plazak, *forum* deitzen zena latinez, mainutegiak eta haien betetzeko eraiki ziren ur-bideak edo **akueduktuak** oraindik xutik direnak. Herria

S. Antonio ospitalea XI. mendean Frantzian sorturiko San Antonioren Anaia Ospitalarioek zuzentzen zuten; **akueduktuaren** eta Pedro eta Martzelino santuen elizaren artean zegoen. Askoren artean

Ibilaldiaren ostean Lisboa urez hornitzen duen XIX. mendeko **akueduktuaren** erdigunean gara. Edorta Jimenez

Jarraian, **akueduktuei** buruz mintzatu ginen. Joxe Austin Arrieta

Beste batzuetan, berriz, **akueduktuetako** hoditeria. Berria - Mundua

2 irud/hed

Adarren eta hostoen artean belar printza luze batek **akueduktu** mikroskopiko bat osatu du. Koldo Izagirre

---

akufeno *(corpusean ez dago; ETCn **78** agerraldi)* *iz* kanpoko eragilerik gabe entzuten den soinua edo hotsa.

Tinnitus edo **akufeno** modu jarraituan nahiz aldizka zarata-hotsak edo soinuak atzematea da, horrelakorik sortuko duen inolako soinu-estimulurik egon gabe. ETC-entziklopedia

Hasieran **akufeno** bat dela uste dut, nire belarri-kontuengatik, baina ez, urruneko alarma-sirena bat da. ETC-literatura, saiakera

Baina hala ere haren hitzak barruan sartuta geratu zitzaizkion eta **akufeno** gogaikarri batzuen antzera egiten zioten burrunba buruan. ETC-literatura, saiakera

Espazio murritz bat nire atseden nahiarentzat, zurrunga egiteko beldur ia obsesiboa, besteen zurrungak **akufeno** baten moduan sentitzea, urpekontzi sobietar batean kale antzerkia egin nahi izatea bezala. ETC-literatura, saiakera

Horietako askok, gainera, zaratak eragindako **akufeno** desatseginak jasaten dituzte. ETC-prentsa

Bonbaren harrabotsak entzumen galera, entzumenean barne soinu baten agerpena (**akufeno**) eta burukominak eragin zizkien. ETC-prentsa

Nolabait irudikatu beharraren beharrez, gure belarrietan hasieratik bukaerara, sekula isiltzen ez den hari musikala, **akufenoa**, martirioaren doinu tragikoa. ETC-prentsa

Artistak laudorioa jasotzeko nola laidoa jasateko prest egon ezean, **akufeno** gaitza nozitzeraino heldu baitaiteke. ETC-prentsa

Frantziar estatuan eginiko ikerketak agerian utzi du 15 eta 30 urte bitartekoen hiru laurdenek entzumenezko arazoak jasan izan dituztela, hala nola **akufenoa** edota harrabotsak eraginiko entzumen galera. ETC-prentsa

Akufenoak izan ditzakegu, adibidez, eta horrek ekartzen du txistu modukoak entzutea, etengabe. ETC-prentsa

Tinnitus edo **akufeno** esaten zaio entzumenari dagokion pertzepzio arazo bati: alegia, belarrietan zaratak aditzeari, kanpotik datorren soinurik izan gabe. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

akuifero **1** *iz* ura daukan geruza edo lur saila.

Denborak aurrera egin ahala, ordea, gorantz doan eskari horri erantzuteko gero eta nabarmenago kontsumitu behar da baliabideen oinarria, eta goranzko eskari horren eta arrain-sarda, **akuifero**, baso eta abarren produkzio iraunkorraren arteko aldea areagotuz doa etengabe. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Labore merkatuetan prezioek nabarmen behera egin dutela ikusten dute, ez ordea **akuiferoen** gehiegizko esplotazioa, horiek ezinbestekoak badira ere elikagai horien produkziorako. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Uraren erabilerak gora egin du, **akuiferoen** errekarga-gaitasunetik izugarri gora gainera. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

2 irud/hed

Ezin nituen Inez eta Lydie elkarrekin gosaltzen imajinatu; ziur aski, hara ailegatu nintzenean, Lydieren maitale izateko esperantza xalo eta aitorrezina nuelako subkontzientearen **akuiferoren** batean gordea. Harkaitz Cano

3 (izenondo gisa)

Baina idaztea ariketa **akuiferoa** duzue, eta orain aitor dezaket. Harkaitz Cano

---

akuikultura *iz* landareak edo abereak uretan hazteko teknika.

Itsasoko **akuikulturaren** industria eta itsasoari lotutako turismoa ere asko hazi dira azken urteotan. Berria - Gaiak

Bi datu: batetik, munduan kontsumitzen den arrainaren %30 **akuikultura** bidez hazitakoa da; eta bestetik, turismoarena da munduan azkarren garatzen ari den sektore ekonomikoa. Berria - Gaiak

Bertze gaietan, Ana Maria Cobo genetikariarekin elkarrizketa, lurrak jasaiten dituen hondamendiak, Mutrikuko **akuikultura** eskola (mota hortako Euskal Herriko lehen eskola), zentzumenen zoramena, hidrogenoaren ekoizpen moldeak, Neptunoren indarra... Herria

---

akuilada *iz* akuilu ziztada.

Oso aberatsa den gizonak edo goi mailara **akuiladaz** bultzatutakoak duen burmuin puska halakoa da, non bere bizilagunek ezin dituzten beren kapeluak buru gainean eduki. Xabier Olarra

---

akuilagarri *iz* norbait zerbait egitera akuilatzen duena. ik **zirikagarri**.

Elkarlanean aritzeko modua biontzat izan da **akuilagarri**, baina ni aspertu samartuta nengoenean ere aurrera egin du donostiarrak, traben aurrean ez du pott egin. Jokin Urain

Yorgos Séferis greziarrak abantaila deitzen dio nik pagotxa deitu izan diodanari haren Egutegiak dakarren apuntetxo **akuilagarri** batean. Anjel Lertxundi

Oroitzapenak ekartzen zituen gogora, pasadizoak kontatzen zituen, irakaspen **akuilagarri** eta sakona aterarazten zuen horietatik. Monika Etxebarria

---

akuilarazi, akuilaraz(i), akuilarazten *(corpusean **akularazi** soilik)* du *ad* norbait zerbait egitera bultzarazi.

Berak ere obra batzu **akularazi** dituela tokia oraino egokiagoa izaiteko gisan. Herria

Bretaniatik ardura falta zen bainan hango goiti-beheitiak arta ainitzekin segitzen zituen eta obra handiak **akularazi** ditu han gaindi, bide eta gaineratiko. Herria

Ziburun konparazione obra handiak **akularazi** zituen elizaren berritzeko. Herria

---

akuilari *iz* zerbait egitera bultzatzen duen pertsona edo gauza. ik **eragile**.

Ibiltzen den bitartean galdetzen dio bere buruari nondik datorkion halako segurtasuna, Damoclesen ezpata famatua, lanetik kanporatzeko gutunaren itxuraz, atzetik datorkiola ongi oharturik egonik, eta kausa justua dela tarteko, gaitasun eza, nahita eginiko iruzurra, jakinaren gainean eta maltzurki, galbidean sartzeko dei **akuilaria** eta guzti. Jon Alonso

---

akuilatu *(ETCn **1.043** agerraldi; orobat **akulatu** **1.154** agerraldi, horietako **1.122** Herria aldizkarikoak)* , akuila(tu), akuilatzen **1** du *ad* akuiluaz jo.

Alaiturik, zaldiak **akuilatzeko** agindu zuen Txitxikovek. Jose Morales

Bazuen beste egitekorik: zaldiak zaindu eta beharrean, **akuilatu** ! Itxaro Borda

Ezten zorrotzak **akuilatzen** dik, **akuilatzen** duenez. Karlos Zabala

Dohakabe haiek, zartailu kolpez **akuilaturik** edo lantzen makilaz bultzaturik, arin bai arin altxatu eta kanpamentuko bueltan paratu ziren. Karlos Zabala

Ezpata eskuan, eliza barnera **akuilatzen** dituzte ezpatariek beren zaldiak. Jon Muñoz

Zaldia hain basaki **akuilatu** zuen non, hara heltzean abere gaixoak bere burua lurrera bota baitzuen, hats bahiturik. Elena Touyarou

2 norbait zerbait egitera bultzatu. ik **kilikatu**, **zirikatu**.

Louis Owen edo Leslie Marmon Silkoren orrialdeen alhatzera **akuilatu** nuen gogoa, neraman irakin aroaren antzeko zerbaiten oihartzunaren bila. Itxaro Borda

Jaun onak, **akuila** ezazue oraino ere printzea, eta bidera haren gogoa atsegin jostagarriotara. Juan Garzia

Jacquesek **akuilaturik** , lankideak hire kontra altxatuak dituk. Itxaro Borda

Giroak **akuilaturik** , bere kabuz hasi zen hizketan Greg -gauza harrigarria berarengan- eta 60ei buruzko oroitzapenak gogora ekartzen. Xabier Olarra

Isasiren ganbaratik irtenda, Basurtokoarenera jo nuen, estura batean, marinelen ahotsek **akuilaturik** . Edorta Jimenez

Hitz urri baina zehatzak erabiliz jakinarazi zion aspalditik zebilela Errusian barrena, beharrak eta jakin-nahiak **akuilaturik** . Jose Morales

Lehen erdieste horrek **akuilaturik** , saiatu nintzen neure begitarteko keinu anitzak era berean moldatzen. Jon Muñoz

Idazketarik ezak, [...] irakurlearen jakinmina **akuilatzen** du eta zehatz adierazita ez dauden gertaerak eta irtenbideak iradokitzen dizkio. Jon Muñoz

Baina hark, ez zion deus erran, ez zuen deus egin bere desiraren **akuilatzeko** . Elena Touyarou

Giza ekimena **akuilatzeko** egoera latzek duten nagusitasuna argitzeko. Iñaki Mendiguren

Horrek are garrantzitsuago baino ez zuen bilakatu senarra, emaztearen irudiko, eta platerik kutunenak gertatzera **akuilatu** zuen, Liutprando bere onetik aterarazi zuenean, enperadoreak teutonieraz mintzo ziren Mendebaldeko lagunekiko elkartasuna aldarrikatzera **akuilatu** zuen latindar apopiloa, "erromatar" guztien aurkako ezinikusi komunean. Mirentxu Larrañaga

Berri ezazu zeure bulkoa, sortu zeugan ekaitza, maita, desira, eska eta **akuila** maitasuna. Joan Mari Lekuona

Hainbat urtez **akuilatu** zuen Girolamok Tartaglia, bere formulak berari esan ziezazkion. Jon Muñoz

Akuilatu ezean, soraiotasun moduko bat nagusitu ohi zitzaion. Xabier Olarra

Jendeak esan ohi zizkion gauzek ere **akuilatu** egiten zuten haiei bizkor erantzutera eta kontakizun are dibertigarriagoak egitera. Mirentxu Larrañaga

Itxaropena zuen osaba **akuilatuko** zuela Florent salbatzera. Karlos Zabala

Jendeak esan ohi zizkion gauzek ere **akuilatu** egiten zuten haiei bizkor erantzutera eta kontakizun are dibertigarriagoak egitera. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **akuilatu egin** (3); **akuilatu egiten** (3); **akuilatu zuen** (11); **akuilatzen du** (3); **akuilatzen zuen** (3); **beharrak akuilatuta** (3); **eta akuilatu** (3)

---

akuilatzaile *(orobat **akulatzaile** eta **akulatzale**) iz/izond* akuilatzen, zerbait egitera bultzatzen duena.

Pirandelloren adiskide eta **akuilatzaile** izan zen; hark bultzatu zuen Pirandello, ordu arte gehienbat olerkiari emana, narraziogintzan sartzera. Josu Zabaleta

Horrelako lan bat sortzeko asmoa duenarentzat, ez dago **akuilatzaile** hoberik alferrikakoa izango dela esatea baino. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zinemaren teoriak, pinturarena baino modernoagoa denez, kontzeptu berriak eta **akuilatzaileak** onartzeko inertzia eta uzkurtasun gutxiago izan du, noski. Josu Zabaleta

Akuilatzaile izatetik alternatiba izatera pasatu ote nahi dugu? Berria - Euskal Herria

Hortik, Luzien Etxezaharreta aldizkariko arduradunak ez zuen denbora anitz eman **akuilatzaile** lanetan hasteko. Berria - Kultura

---

akuilatze *iz* akuiluaz jotzea; norbait zerbait egitera bultzatzea.

Mundu-mailan misiolari-ekintzen **akuilatze** honek planteaturiko arazoak ez ziren, hain zuzen, eliz geopolitikazkoak. Iñaki Mendiguren

---

akuilu *(ETCn **1823** agerraldi; orobat **akulu** **46** agerraldi eta **akilu** **3** agerraldi)* **1** *iz* makila luze eta eztenduna, gurdi abereei eragiteko erabiltzen dena.

Gorpuez gain, armak, edalontzi bat, eho-uhal bat, **akuiluak** , gerriko bat eta eskumuturreko bat ere aurkitu dituzte arkeologoek. Berria - Gaiak

-Beste bat ere izan behar dik -esan nuen; **akuilu** bat hartuta, zerri kurrinkaria zirikatu nuen, ilea atzeraka igurtziz-. Koro Navarro

Ehun ikusle-edo plazaratu ziren, eta honek **akuilua** , horrek haga, eta hark labana, jostunaren bastidore gaineko ehuna baino josiago eta zulatuago utzi zuten. Joan Mari Irigoien

Auskalo zenbat **akuilu** egin izan diren hurritz makila sendokotez. Pello Zabala

Guztiak festarako prestik eta iratzarririk, haietarik anitz makila edo **akuiluren** bat eskuan zutela, edo hagatxoren bat edo labana, zeren erran baitzuten ezen zezen haietarik bat edo bertze ikusleen esku utzi eta beraiek sastatu eta akabatu beharko zutela. Joan Mari Irigoien

Ordurako gurdia bete bete eginda zihoan han aldats behera astiro eta kulunka, idiek aittitte **akuiluaz** eta aio aiomaka aldamenetik gidari zutela. Joseba Sarrionandia

Zamari nagiak **akuilua** behar duela eta asto odolgabeak eztena duela zain. Askoren artean

Era askotariko armak zekartzaten; aiztoak, segak, igitaiak, **akuilu** zorroztuak, baita arku bakan batzuk ere han-hemenka. Joanes Urkixo

Ehiza-lagunak albait hoberen armatuta zetozen, artzain eta arrantzale baketsuak zirela kontuan hartuta: batzuek **akuilu** luzeak zeramatzaten muturrean labanak lotuta. Joanes Urkixo

Horra zergatik maite dizun artzaiak hurritz makila, itzaiak hurritzezko **akuilua** . Patziku Perurena

Orduan hasi nintzen auzoko saihesbideetan bakarrik edo ardien atzetik, irratia esku batean eta mizpirazko **akuilua** bestean, terrentaz, ibiltzen. Belaunetan jarri eta Maialenek mihia ahoan sakatu zidanan, **akuilu** kolpeaz hautsi eta bihurdikatzen zen sugea bezala ingurukari. Itxaro Borda

Emaztea bizkarrean hartu, eta hor izango ditu Miepek bere **akuilu** -makuiluak. Josu Zabaleta

Seiehun filistear hil zituen itzain-**akuilu** batez. Elizen arteko biblia

Eta zenbat makil eta bastoi klase, zenbat **akuilu** eta haga klase, zenbat kirten klase beti eskurako. Patziku Perurena

2 irud/hed

Baina izua nuen **akuilu**. Aingeru Epaltza

Sariak ere, azken finean, **akuilu** bat dira lanean jarraitzeko. Berria - Euskal Herria

Zama den edo **akuilu** den, nork daki aurretik sekula kantxan bertan ikusi eta bizi gabekoaren aurrean nola erreakzionatuko duten Zearrak eta Eulatek. Berria - Kirola

Ulergaitza ematen badu ere, Umberto eragozpena nuen Parisa joateko, ez **akuilu**. Anjel Lertxundi

Baltzaren burutazioak hemen jasotzeko arrazoia ez da adiskideari omenaldia egitea, ezpada bere liburuko ideiak lagungarri eta **akuilu** zaizkidala nire hau taxutzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Irudimena da atseginaren **akuilua**; era honetako gozamenetan irudimenak gobernatzen du dena, berak iziotzen du dena; ez al dugu ba berari esker gozatzen? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bizitzaren ibilbide malkartsu honetan, beraren presentzia makila gisa -edo **akuilu**, edo makulu- sentitzen dut: aurrera begiratzera behartzen nau eta badakit berarengan berma fida naitekeela. Patxi Zubizarreta

Frantzisko utziezineko utopia bezala ageri zaigu, betiko Ebanjelioaren utopia, eta horregatik, hain zuzen, etengabe saiatu dira frantziskotar belaunaldiak haren memoria bizia berreskuratzen, indar eta **akuilu** delako bizitza aldi oro berritzeko. Askoren artean

Venezian bizi zena, biolinak egiteko tailer bat sortu nahi baitzuen bertan, Veneziak Mediterraneoan zuen ospe eta itzala **akuilu**. Felipe Juaristi

Ibarretxek **akuilu** izan nahi du normalizazio prozesurako oinarriak hitzartzeko ahaleginean. Berria - Harian

Eragina, ekintza artistiko askoren ezten eta **akuilu** izan zelako; eta itzala, berriz, haren teoria estetikoek geure hainbat diskurtso artistiko oratu zituelako. Anjel Lertxundi

Betiereko burutazio arin eta isil-gordekoa zuen **akuilu**, agian gau hartan gauzak onbideratzen has zitezkeelakoa. Mirentxu Larrañaga

Bekaitza, lehiakortasuna, aintzat hartua izateko gura, mundu arrunteko indarrak dira, haren parte, baina bultzagarri eta **akuilu** gertatzen dira mundu pribatuan. Juan Garzia

Batzutan, borreroak, nostalgiaren **akuiluak** eraginda, urkatuak zabuka ibiltzen ditu, indarrez, gaztaroko oroigarri dizdizariak buruan. Karlos Linazasoro

Hitz muga ere izan daiteke hiztunaren arretaren **akuilu**. Beharraren **akuilua**. Lourdes Oñederra

Tiralari bizkorra, eta, halaber, taldearen **akuilua**. Berria - Kirola

Ez dago zabarkeria edo alferkeriarako lekurik, maitasunaren **akuiluak** gero eta ekintza handiagoetara bultzatzen duenean. Askoren artean

Ez nuen lortzen turkiarrarekiko historiaz pentsatzeari uztea, jakin-min likitsaren **akuiluak** nire burmuinean pizten baitzuen. Fernando Rey

Aleungarren zigarroa piztu nuen, ke-bafadaren **akuiluaz** oroimenaren gihar ikustezinak perlesiatik ateratzeko bertze ahalegin batean. Aingeru Epaltza

Boterearen ilusioa, horixe du **akuilutzat**. Premia **akuilu** hartuta, baina korrika eta presarik gabe jokatzen asmatu zuen Vila-realek atzo. Lopez de Arana

3 (irud/hed izenondoekin eta hitz elkartuetan)

Ez al ziren horiek etorkizunean piztu zitekeen gerra zibil baten **akuilurik** handienak? Jon Muñoz

Arriskatzeko dena galdua edukitzea baino **akuilu** hoberik ez dagoenez, [...]. Berria - Kirola

Zeren eta, gurasoek ohorearen eta bekaizkeriaren **akuilu** soilarekin akuilatzen ohi dituzte beren seme-alabak bertutera. Piarres Xarriton

Errentagarritasunaren irizpidea lege duen batek ez du onargarri inork liburu bat kultur **akuilu** soilez idaztea edo argitaratzea. Anjel Lertxundi

Langile haientzat zerbait prestatzea **akuilu** bikaina zen, bidenabar gauerako ere zerbait egiteko. Urtzi Urrutikoeetxea

Atzerritik etorritako hainbat ikerle entzutetsu geure hizkuntzaz arduratzen zela ikustea ez zen batere **akuilu** txarra gure identitateaz galdetzen hasi eta gure esaera zahar batek dioena -gizon apalenak ere itzala du- geure identitateari aplikatzeko. Anjel Lertxundi

· Aholkularitza eta **akuilu** funtzioa bete beharko ditu egituraketa berrian. Berria - Euskal Herria

Akuilu lan hori egin nahi dute, nagusiki, urte hauetako esperientziak agerian utzi dielako bertsolariek "sortzaile diren neurrian ideiak badituztela, baina, maiz, ez direla horiek gauzatzera iristen. Berria - Kultura

Duda hori pentsa- **akuilu** gisa balia dezakegu. Itxaro Borda

4 ***akuilu-ezten*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Nekatuta zirudien, baina jabeak **akuilu-ezten** zorrotza zerabilen lanean jarrai zezan. ETC-literatura, saiakera

Larrabehiak **akuilu-eztena** nola, hala sentitu zuen Andonik garrasi hura. ETC-literatura, saiakera

Akuilua da makila mota bat, luzea, ezten zorrotz bat duena punta batean, eta gurdi abereak xaxatu eta gobernatzeko erabiltzen dena. **Akuilu-eztena** esaten zaio punta zorrotz horri. ETC-entziklopedia

5 ***akuilu-makuilu***

-Nik **akuilu-makuiluak** erabiliko ditut. Josu Zabaleta

Emaztea bizkarrean hartu, eta hor izango ditu Miepek bere **akuilu-makuiluak**. Josu Zabaleta

6 ***akuilu-makulu*** *iz pl* zurezko zangoak, oinetan finkatzen direnak.

-Nik akuilu-**makuiluak** erabiliko ditut. Josu Zabaleta

Emaztea bizkarrean hartu, eta hor izango ditu Miepek bere akuilu-**makuiluak**. Josu Zabaleta

Bere hanka baldarrekin, kaleetan behera irristaka joaten zela ematen zuen, akuilu-**makuluetan** balebil bezala. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akuilu bat (4); **akuilu eta** (6); **akuilu gisa** (6); **akuilu izan** (15); **akuilu izan behar** (3); **akuilu izan daiteke** (4); **akuilu izan zen** (3); **akuilu lana** (4); **akuilua izan** (7); **akuiluetako bat** (3); **eta akuilu** (13)

---

akuiludun *iz* akuilua duen pertsona.

'Aida!' esango zuen **akuiludunak**, idi beilegiek mugimendu nagi eta astunak egingo zituzten itsasbazterreko bidetik behera Ondarroarantz, eta Lekeitiorantz, eta Gernikarantz. Joseba Sarrionandia

---

akuiluka *adlag* akuilua erabiliz.

Ondo asko ezagutzen ditut nik haiek guztiak: alproja hutsak dira; hirian denak dira berdinak: alproja bat beste alproja baten gainean eta hirugarren alproja bat beste biei **akuiluka**. Jose Morales

Paul D-k, Zorra Kitok eta beste hogeik egun guztia zeramaten haiei bultzaka eta **akuiluka** kanaletik lehorrera, handik arrapalara, eta handik hiltegira. Anton Garikano

Hortaz, biak ari zitzaizkidan esateko eta esateko **akuiluka**. Fernando Rey

Posta etxetik lehenbailehen abiatu nahi zuen aldi oro, eta, horretarako, zaldi berriak tarantasetan agudo baino agudoago lotarazten zituen, postako nagusiei eraginez eta iemstxikei **akuiluka**. Karlos Zabala

---

akuilukada *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi) iz* akuilu ziztada.

Arrotza bidali nahiz, ordea, **akuilukadak** jasotzen zituen muturtxo minberatuan. ETC-literatura, saiakera

Madvigek barre egin, eta burua altxatu zuen: -**Akuilukada** jasateko gauza bahaiz. ETC-literatura, saiakera

Azken birako txilin-hotsak, **akuilukada** eman zien milia erdiko itzulian zihartuten txirrindulariei. ETC-literatura, saiakera

Zalantzarik gabe, bere ohiko modu itsumustukoan ziharduen, gero ahultzen eta deuseztatzen zen bat-bateko jakin-minaren **akuilukadak** bultzatuta. ETC-literatura, saiakera

Momentuko **akuilukadaren** arabera egiten ditut gauzak. ETC-literatura, saiakera

Ikuskera honek, Pombal-en Lisboatik Katarina-ren Petersburgora, aitortu beharra dago **akuilukada** egundokoa eman diola gizarte europarraren eraldaketari. ETC-literatura, saiakera

Horrek ez du, inolaz ere, esan nahi horrelako kolpe latzak, horrelako **akuilukadak** behar (eta eskatu egiten) ditugunik. ETC-prentsa

Inauterietako kopla, zirri eta **akuilukaden** usainak etorri behar izan du eguraldia, azkenaldiko zurikeriak utzita, benetako neguz mozorro dadin. ETC-prentsa

Gerra batek eragiten duen larrialdiaren **akuilukadaz**, modak ere aldatu ziren, janzkien merkeagotze eta gehiago iraute aldera. ETC-prentsa

Hotzaren **akuilukada** hori gabe, jai du azaren loreak. ETC-prentsa

Bi **akuilukada** izan dira ukuilutik atera nautenak: azken mohikanoaren konplexuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

BEZEROEK ez dute lehenengotik kanporako bidea hartuko. Eta PRESENek beste **akuilukadaren** bat bota beharko die. ETC-telebista

Jendea hirietara bizitzera bultzatzeko beste **akuilukada** bat izan zen hura. ETC-entziklopedia

---

akula *iz* ahoa orratzaren itxurakoa duen arrain luzea eta mehea, hezurdura berdaxka duena*(Belone belone)*.

Gregoriok ere sarritan izaten hau akorduan eta esan behar diagu egunetik egunera hobeto kuzinatzen dabilela, arrantzuan lantzean behin joaten gaituk eta Papak lehengo batean 500 liberako **akula** harrapatu zian. Edorta Jimenez

Fragata bat, eta marinelak jartzietan belak biltzen, eta baupres luze bat, **akula** erraldoiaren ziria airean bide egiten, hegan hasi behar duen hegazti zuriaren moko. Koldo Izagirre

---

akulamendi *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* lukanidoen familiako intsektu barailaduna *(Lucanus cervus)*.

Kakalardo adarduna, **akulamendia**, arkamelua edo arkuloa ("Lucanus cervus") lukanidoen familiako intsektu barailaduna da. ETC-entziklopedia

Akulamendi edo arkanbele arrek ere adarkadaka bereganatzen dute emeen konfiantza. ETC-prentsa

---

akularazi ik **akuilarazi**.

---

akulatu ik **akuilatu**.

---

akulatzaile ik **akuilatzaile**.

---

akulatzale ik **akuilatzaile**.

---

akultural *izond* kulturarekin zer ikusirik ez duena.

Oro har, erlatibismoak ukatzen du gure baieztapenak termino ahistoriko, **akultural** edo absolutuetan funtsa daitezkeela. Askoren artean

---

akulturalizazio *iz* hizkuntza bat beste hizkuntza bateko kultura formetara egokitzea.

Beren ikerketan gehiago izango litzateke **akulturalizaziorako** bidea. Berria - Euskal Herria

---

akulturatu *izond* hizkuntza bat beste hizkuntza bateko kultura formetara egokitua.

Frantsesa da benetako kultura bakarra, eta gu, euskaldun **akulturatuok**, gure primitibotasunean, futitu egiten gara benetako kulturaz, eta atzea ematen diogu aurrerabideari, eta mamuen hizkuntzan maite ditugu gure haurrak. Berria - Kultura

Eta kontu egiteko ere eskatu nahi dizut, epaile jauna, ea zer egiten duten euskaldun **akulturatu** hauek, Tabakalera izen zaharkitu eta zatarreko leku horretan. Berria - Kultura

---

akulturazio *iz* hizkuntza bat beste hizkuntza bateko kultura formetara egokitzea.

Bere bizitzaren azken urteetan, antza, obsesionaturik zebilen milaka urteko kultura hura pairatzen ari zen **akulturazioa** zela-eta, eta talde sektario bat sortu zuen, bere buruaz beste egiteko armadako kaserna batean *seppuku* erritoa erabiliz. Berria - Kultura

Herri oso baten **akulturazioa**, estrategi politikoa besterik ez da izan. Ramuntxo Etxeberri

Horretan ikus daiteke **akulturazioa** oraino urrunago joan daitekeela. Berria - Kultura

---

akulturizatu, akulturiza(tu), akulturizatzen da/du *ad* hizkuntza bat beste hizkuntza bateko kultura formetara egokitu.

Seaskan **akulturizatua**. Berria - Ekonomia

Altadis %3,79 igo zen eta Bolivia **akulturizatuan** gaiztakeriarik ez duela egin esan zuen Repsol-YPFk %1,88. Berria - Ekonomia

---

akulturizazio *iz* akulturizatzea.

Horretarako eman duen arrazoia harrigarria da: ikastolek deskulturizazioa eta **akulturizazioa** eragiten dute. Berria - Euskal Herria

Epaileak ikastolek deskulturizazioa eta **akulturizazioa** eragiten dutela azaldu zuen aurtengo urtarrilaren 18ko ebazpen batean. Berria - Euskal Herria

Ikastolek ikasleen **akulturizazioa** eta deskulturizazioa eragiten dutela gaitzetsi du IAk. Berria - Euskal Herria

---

akulu ik **akuilu**.

---

akumuladore *(corpusean ez dago; ETCn **107** agerraldi; orobat **akumulatzaile** ETCn **3** agerraldi)* *iz* akumulatzen duena. ik **akumulatzaile**.

Horretarako, metagailu elektriko batzuk edo **akumuladore** gutxiago erreko batzuk, bateria batzuk, erabiltzen dira energia hori gordetzeko eta behar denean erabiltzeko. ETC-prentsa

Akumuladore gisa egiten dute lana liburuek. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tutueria laburra erabili edo ur-**akumuladore** bat jarri harguneetatik gertu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

akumulatibo *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)* *izond* metagarria.

Gertakari-denbora **akumulatiboa** bada, denbora mekanikoan, berriz, minutu bat eta bestea berdinak dira. ETC-literatura, saiakera

Obra **akumulatibo** eta autobiografiko bat da Tuttirena Topemanta art izenekoa. ETC-prentsa

Ez atzera ez aurrera geratzea "okerragoa" da beretzat: "Kultura prozesu **akumulatiboa** da". ETC-prentsa

Aukera horren abantailen artean bat ondoko hau da: "ezagutza **akumulatiboaren** " bilakatzea eta garatzea errazten duela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurraren kurba hipsometrikoa, garaiera azalera **akumulatiboaren** arabera adierazten duena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurrerago ikusiko dugu logika **akumulatibo** hau ez dela guztiz txarra. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, pilatzailea (**akumulatiboa**) da, ez subordinatzailea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrexegatik, energia balantzearen oreka apurtu egiten da, bero **akumulatiboa** sortu delako eta, bistan denez, berotzea areagotu. ETC-entziklopedia

Zuhaitzen hazkuntza hori alderatuz, zaharragoak diren egur zatiak parekatzen joan daiteke, modu **akumulatibo** batean. ETC-entziklopedia

---

akumulatu, akumula, akumulatzen *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **metatu** agertzen da)* **1** du *ad* metatu, pilatu.

Otsailaren 1a, hori zen biok gorriz markatuta genuen eguna, egun hartan agortzen baitzitzaidan amatasun baimena, edoskitzeagatik **akumulatutako** orduak eta baita urte osoko oporrak ere. ETC-literatura, saiakera

Osagai indartsuak **akumulatu** ditu. ETC-literatura, saiakera

Tentsioa **akumulatzen** ari zitzaidan tai gabe. ETC-literatura, saiakera

Soberakinak **akumulatzeko** pasio obsesiboa deuseztatu. ETC-literatura, saiakera

3) Gibelean eta garunean kobrea progresiboki **akumulatuz** doa sagu eredu honetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Are gehiago, garai batean **akumulatu** zuen kapital sinbolikoak birbalorizazio-prozesu bat izan du, hainbestekoa non gaurko sisteman erabat zentral bihurtu baita idazlea, J. ETC-zientzia, zuzenbidea

Produktu mediatuak ez du berehala eragiten hartzailearen portaeran, eragin hori epe luzekoa da, alegia, zelanbait esatearren, hartzailearen burmuinean, mezuaren iraunkortasunagatik, mezuaren jarraikortasunagatik, **akumulatu** egiten dira estimulu desberdinak, zeintzuek azkenean jarrera-aldaketa lortzen baitute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egia esan bi logikak agintzen dute kulturan: logika industrial-kapitalistaren arabera, kultura ondarea da, **akumulatu** ahal den kapital bat, eta logika informazionalaren arabera, kultura bizi-praktiketan topatzen dugun alderdi sinbolikoa da66. ETC-zientzia, zuzenbidea

Abiaduraz gain, teknika horrek badu beste abantaila bat ere: espektro berean pultsu anitz **akumulatuta** , sentsibilitate askoz handiagoa lor daiteke, eta hori oso baliagarria gertatzen da lagin kantitate txikia dugunean eskura. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hauetako gehienak exozitosi bidez zelulatik kanporatzen dira baina gutxi batzuk zitosolean gelditzen dira eta zelula zahartu ahala **akumulatzen** joaten dira. ETC-entziklopedia

Akumulazioa: Sistema fisikoaren barruan **akumulatuz** edo bilduz doan materia kantitatea. ETC-entziklopedia

Hainbat herrialdek moluskuen inportazioak erregulatzen dituzte muluskuek gorputzetan **akumulaturiko** toxinek duten arriskua dela eta. ETC-entziklopedia

2 (era burutua izen gisa)

Harearen modulu granulometrikoa baheetan gelditzen diren portzentaje **akumulatuen** batuketaren ehunena da, 80; 40; 20; 10; 5; 2,5; 1,25; 0,63; 0,32 eta 0,16 mm-ko baheetatik igarotzean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi neurketen batez bestekoarekin urteko **akumulatua** ere argitara ematen du CIESek. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 (era burutua izenondo gisa)

Hamar minutu pasatzen utzi zituen, autoan, motorrik piztu gabe, bildutako paperak ordenatzen, autoaren irratia piztuta eta tarteka parabrisa garbitzaileei eraginez, ur tanta **akumulatuak** baztertzearren. ETC-literatura, saiakera

---

akumulatzaile *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi; orobat **akumuladore** ETCn **107** agerraldi)* *iz* akumulatzen duena. ik **akumuladore**.

Eraman nazazu, bada, Niagarako **akumulatzaileen** lantegietara. ETC-literatura, saiakera

Beraz, pentsa dezakegu enuntziatu parentetikoek islatzen dutela (edo imitatzen dutela) ahozko hizkerako sintaxi askea, zatikatua, **akumulatzailea** . ETC-zientzia, zuzenbidea

---

akumulazio *iz* metatzea, pilatzea.

Sistematismoa, **akumulazioaren** estetika bat, norbanakoaren mugak sexuaren bitartez ezagutzeko ala desegiteko grina. Berria - Kultura

Egungo globalizazioa, kapitalismoaren historiaren laugarren globalizazioa da; eta mundu mailako **akumulaziorako** oinarri berria eta hedapen berria erakusten dizkigu. Iñaki Heras

---

akuñatu, akuña, akuñatzen du *ad* monetez mintzatuz, irarri.

Agian moneta berri bat **akuñaturik** zuen, edo bazeuzkan ministerio bat eratzeko planak. Jon Alonso

---

akuoso *(corpusean ez dago; ETCn **282** agerraldi)* *izond* urtsua.

Linneo biologoak hamaika (11) oinarrizko zapore identifikatu zituen baina, gure ustez, sentsazio haietako batzuk (astringente edo lakarra, biskosoa, **akuosoa** , etc.) ez dira berez zapore, ukipenezko sentsazioak baizik. ETC-prentsa

loi horrek ematen du 7tik beherako pH-a duten disoluzio **akuosoen** azidotasuna. ETC-zientzia, zuzenbidea

Berriki, polimero **akuosoz** osatutako hozgarriak -urez eta polimero batez (eskuarki, poli (alkilenglikol) -ez edo PAGez) osatutako disoluzioak- garatu dira, uraren eta olioaren arteko tenplatze-abiadurak dituztenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Disoluzio amoniakal horietatik atmosferara doan NH3-aren emisioa haien kontzentrazioaren, tenperaturaren eta pH-aren funtzio da, baita ere hondar **akuosoak** edo iraizkinak daudeneko lurzoruaren aldameneko aire-geruzaren hezetasunaren eta NH3-aren kontzentrazioaren funtzio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sintesi-prozesu hori kloroplastoko estroman gertatzen da, hau da, tilakoideen inguruan dagoen gune **akuosoan**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontuan izan lehenengo erreakzioaren kasuan, substantzia **akuosoak** eta likido puruak ez direla gauza bera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nabarmentzekoak dira fase **akuosoan** dauden itsasgarriak, inguruneko pH-a aldatuz aktibatu eta desaktibatu daitezkenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Emultsio bituminosoak egoera **akuosoan** kontserbatzen eta erabiltzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azido fluorhidrikoa hidrogeno fluoruroaren soluzio **akuosoa** da, hidrogenoak eta fluorrak (HF) x eratutako konposatu kimiko biziki arriskutsua ETC-entziklopedia

Azido hipoklorosozko gatz **akuosoetara** gehitzen badira (gatz horien adibide sodio hipokloritozko disoluzio zuritzaile komertzial bat), emaitzatzat lortuko den erreakzioa ezkerrera zuzendua egongo da eta kloro gasa ekoitziko da. ETC-entziklopedia

Azido hau oso sendoa da, izan ere, azido guztien artetik azidotasun konstante baxuena duena da eta hortaz, osorik disoziatzen da disoluzio **akuosoan**. ETC-entziklopedia

---

akupuntore *iz* akunpuntura egiten duen pertsona.

Itsu bat hain **akupuntore** ona izatea...; magia zeukan begien atzean. Juan Kruz Igerabide

---

akupuntura *iz* praktika terapeutikoa, gorputzeko puntu jakin batzuk orratzekin ziztatzean datzana.

Motibazioa areagotzeko terapiak dira, hala nola **akupuntura**, hipnosia eta talde saioak. Berria - Euskal Herria

Zenbait mediku Alemaniakoak, esaterako dietak, fisioterapia, sendabelarrak edo **akupuntura** aholkatzen hasi dira. Berria - Gaiak

Akupunturak erlaxatu egiten du eta erretzeko gogoa kendu. Berria - Euskal Herria

Badirudi **akupunturaren** eta txinatar medikuntzaren zale egin direla zuriak, Nixon Txinan izan zenez geroztik. Juan Kruz Igerabide

Orratzen bidez **akupuntura** puntuak ziztatzea da terapia horren muina. Berria - Euskal Herria

Milaka orratzek haginka egingo lidakete bihotz aldean, **akupuntura** sesio definitiboan legez. Sonia Gonzalez

Akupuntura arrastoak ere puntu more bihurtuak ziren. Juan Kruz Igerabide

---

akura 1 *iz* alokairua.

Akurako kotxe batean etorri behar izan diat. Jose Morales

Beste gauzen antzera, dirua dohainez, mailegutan, **akuran** edo salerosian eman daiteke. Andres Urrutia

2 ***akura berritze*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Kontratua amaitzean, maizterrak hamabost egunez errentaren objektua den gauzaz gozatzen jarraitzen badu errentatzailearen onespenez, presumituko da isilbidezko **akura berritzea** eman dela, honakoa landa eta hiri finka errentamenduei aplikagarri delarik. ETC-entziklopedia

3 ***akura luzatze*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Kode Zibilean, isileko borondate-deklarazioari buruzko adibideak daude: KZren 1566. artikuluaren "isileko **akura-luzatzea** " eta KZren 999. artikuluaren "jaraunspena isilean onartzea". ETC-zientzia, zuzenbidea

4 ***akuran eman*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Akuran eman den landa edo hiri finkaren berreskurapena eskatzen denean -errenta edo antzeko kantitatea ez ordaintzeagatik-, demandatuak ordainketa edo enerbazioaren jatorriaren gaineko zirkunstantzia besterik ezin izango du alegatu eta frogatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hamabost zituela, Ouro Pretoko sendi batek erosi zuen, harrezkero urre meatzariei bere gorputza **akuran emateko**. ETC-literatura, saiakera

5 ***akuran hartu*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Akuran hartu diot Lizardiri Bacozaleak eta pagotxa inork ez bezala lotu dituen uztarria "Sagar-lore, loreil-bete" olerkiko zortzigarren bertsoa. ETC-prentsa

Aurki teatroari buruzko ikastaro trinko bat antolatu behar zuen hark, eta mesede bat zor zionez, azterketa gaindituz gero, baimena ez ezik Habanan etxebizitza **akuran hartzeko** eskubidea ere bereganatuko omen zuen. ETC-literatura, saiakera

Kafetegietako bat antzerki-kofradiaren elkargune bihurtu zen, eta, 1731n, Lincoln's Inn Lields-eko teatroaren (han antzeztu zen lehendabiziko aldiz The Beggar's Opera) aurreko nagusiak, John Rich-ek, **akuran hartu** zituen gaur egungo opera-eraikinaren lurrak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

akuratu, akura(tu), akuratzen du *ad* errentan eman edo hartu, kontratatu.

Samingarria izan zen arotz pare bat **akuratu** beharra, zeinei Emiliok agindua eman baitzien kanpaia zatikatu gabe bere ainguramendu-erroetatik atera ahal izateko moduko zer bat antolatzeko. Juan Garzia

Txalupa bat **akuratu** nuen gero. Joxe Austin Arrieta

Bizitegiren bat **akuratu** beharra zeukan, baina ikaragarri garestiak ziren denak. Jose Morales

---

akuri *iz* ugaztun karraskaria, jatorriz amerikarra, untxi txiki baten tankerakoa eta bakterio azterketan oso erabilia*(Cavia cobaya)*.

Akuriaren odolaz eta nire txahalaz zikindua zegoen eskailera-tarte guztia. Joxan Elosegi

Kartzeletan gutxienez 100 preso **akuri** moduan erabiltzen dituzte, Israelgo farmazia enpresen sendagaiak probatzeko, eta anestesiarik gabeko ebakuntzak ere egin izan dira. Berria - Mundua

Kutsaraz zitekeen zenbait bakterio nahiz birus patogenorekin, baina **akuria** zen bakteriologoen aztergai behinena. Juan Garzia

Tira, horrek ez dio inporta, kontua da sagu zuriak lapurtzen zituela ez-dakit-zein laborategitik lagun batekin, edo **akuri** bat, bere aitaren langile baten haztegitik, eta benetako zeremonia bat antolatzen zuen Selma elikatzeko. Karlos Zabala

Kaninchen (untxiak) deitzen zieten giza **akuri** horiei. Urtzi Urrutikoetxea

---

akusamendu *iz ipar* akusazioa, salaketa.

Burua gora mintzatu da bere gisan baina **akusamendua** egin zaio gizartearen kontrako krimentzat. Herria

Hauxe du **akusamendua**: Carlos Sandoval jauna, eta harekin beste bost lagun, bixtatik leku-arazi zituela bera kargutan zen denbora eta geroztik haien berririk ez. Herria

Denbora berean, Amnesty International erakundearen **akusamenduak** ere ez dituzte onartzen jazarle horiek. Herria

Lehen jujeak **akusamenduak** errepikatzen ditu eta bururatzen galdeginez. Marzel Etxehandi

Perutarrek nahi lukete gizon hori holako ainitz **akusamenduz** jujatu. Herria

Augusto PinochetXileko president ohi diktatorearen kontrako **akusamenduak** altxatu dituzte haungo bereko bi abokatek eta ez da afera ttipia. Herria

Michael Jackson kantaria ere kenka gaixtoan Kalifornian bere haurreri buruzko lizunkeria **akusamendu** eta auzien erdian. Herria

---

akusapen *iz ipar* akusazioa, salaketa.

Diharce berak esplikatu zion **akusapen** horrek heriotza kondena zekarrela. Elena Touyarou

Prokuradore nagusiak onartu du funtsean zonbaitentzat gezurrezko **akusapenak** zirela edo zitzkeela bederen, bainan ez haatik beste bospaseientzat. Herria

Zer leporatua zaiote? ETA-ren laguntzaile direla, ETA-ren dirua "garbitzen" dutenetarik! Bazterrak harritu dira holako **akusapenik** ezin onetsiz. Herria

Ez da hori **akusapen** huts bat, teoria bat... hori da egiazki bizi izan duguna, ezin ukatua! Herria

---

akusapide *iz ipar* akusazioa, salaketa.

2001-eko uztailean Madrileko auzitegi batek kenduak dizkie ETAren kide izaitearen **akusapideak**. Herria

---

akusatibo *iz* gramatikan, hizkuntza ez ergatiboetan, osagarri zuzenaren kasua.

Latinak eta beste hizkuntza batzuek, aldiz, **akusatiboa** [...] erabiliz eratzen dute objektu zuzena. Isabel Arrigain

Gero hasten ginen deklinazioen eskailera zailetan gora, nominatiboa *qui* genitiboa *cuius*, datiboa *cui*, **akusatiboa** *quem*, [...]. Joseba Sarrionandia

-Barkatu, don Frantzisko, baina, *Angelum* erran duzu, eta *Angelus* beharko luke, zeren gaur ikasiaren arabera, nominatiboa beharko luke hor, ene ustez, ez **akusatiboa**. Joan Mari Irigoien

Argi dago perpaus pasiboei boz aktiboko perpausak dagozkiela sistematikoki, ezaugarri erabat espezifikoak dituztenak, hala nola aditza iragankor **akusatiboa** izatea eta beste. Itziar Laka

Indoeuropeoz, singularreko **akusatibo** guztiek bukaerako -m bakarra agertzea zuten ezaugarri. Isabel Arrigain

Pluraleko **akusatiboaren** kasuan ere, oso antzekoa da gertatutakoa. Isabel Arrigain

---

akusatu, akusa(tu), akusatzen *(ETCn **11.460** agerraldi; cf **salatu** **117.050** agerraldi)* **1** du *ad* salatu, (norbait) erruduntzat hartzen dela adierazi.

Bai, **akusa** nazazu! Xabier Paya

Hala, beraz, beste hamaika kargu gehiagoz **akusa** zintzakegu berdin; baina bi aski izango zaizkigu -esan zuen Nikolas Trot-ek-, zeren Jainkoaren legearen aurka baitoaz. Juan Garzia

Neure ahalke ttipiari nagusitu nintzaion; eta egin ez nuen oker batez hanturik, emakumeek egiten duten guztia egin izanaz **akusatu** nuen neure burua. Jon Muñoz

Torturaz **akusaturiko** 14 mossoak errugabe jo ditu Gironako auzitegiak. Berria - Mundua

Hilketaz **akusaturik**, ihes egin behar izan zuen. Juan Garzia

1898an, bankuko lana utzia zuela, dirua desbideratzeaz **akusatu** zuten. Berria - Kultura

1998an magrebtar bat torturatzeaz **akusaturiko** polizien epaiketa hasi da. Berria - Mundua

Duela bost egun, bestalde, hilda agertu zen Kroaziako gerra krimenez **akusatutako** Milan Babic. Berria - Harian

Adingabe bat bortxatzeaz **akusatutako** gizon bat, errugabe. Berria - Euskal Herria

Sei pertsona hiltzen saiatzeaz **akusatutako** gizonak dio Jainkoaren aginduz egin zuela. Berria - Euskal Herria

Epaimahai horren gehiegikerietako bat zera da, delitu berberaz **akusatutako** bi pertsonetatik, ukatzen duenari heriotza-zigorra ematen zaiola, eta aitortzen duenak saihestu egiten. Iñaki Iñurrieta

Giza eskubideen urraketa larriaz **akusatu** dute Errusiako Armada. Berria - Mundua

Zeren **akusatua** bainengoen, baina ez nekien nork **akusatu** ninduen. Joan Mari Irigoien

Laster zakurren ihausiek **akusatu** zaituztete. Xabier Montoia

Haiek guztiek osaba **akusatzen** eta kondenatzen zuten, eta nik **akusatzen** eta kondenatzen nituen haiek guztiak, eta **akusatu** eta kondenatu ez ezik, behin eta berriz maradikatu ere nituen. Joan Mari Irigoien

"Informazio faltsutu batzuetan oinarrituta, bidegabeki **akusatu** naute", nabarmendu zuen Villepinek. Berria - Harian

Bi urte geroago, Gipuzkoako industri herri batean haur sendagile bezala ari zela, arduragabekeria kriminalaz **akusatua** izan eta lanpostua galdu zuen. Bernardo Atxaga

2 (era burutua izen gisa) delitu edo huts bat egozten zaion pertsona.

Akusatua hobenduna dela deritzogu. Berria - Kultura

Akusatua heriotza zigorrera kondenatu zuten. Pello Salaburu

Nola izan zitekeen zuzenbidezko epaiketa **akusatua** bertan izan gabe eta bere kontrako froga nagusiak damutuen salaketetan oinarrituta egonda? Ibon Uribarri

Ezin da epaile bihurtu norbaitek gizarte-ituna hausten duenean, orduan nazioa bi partetan banatuko litzatekeelako, bata soberanoak ordezkatua, ituna hautsi dela baieztatzen duena, eta bestea **akusatuak**, ukatzen duena. Juan Martin Elexpuru

Ustez ARB Bretainiako Armada Iraultzailearekin eta honek eginiko erasoekin lotura duten 11 militante bretoiren kontrako epaiketaren hirugarren astea hastearekin, atzo Gael Roblin **akusatuak** onartu zuen ARBrekin "harremanetan" izan zela. Berria - Mundua

Akusatuek ukatu egin dituzte bahiketa, legez kanpoko sarrera eta tortura karguak. Berria - Mundua

Badakizu, halaber, ezen salaketa haiek isilpean eta ezkutuan egiten zirela: hain isilpean eta hain ezkutuan, non **akusatuak** ez baitzuen salatzailearen eta lekukoen berri jakiten. Jon Muñoz

Jendeak pentsatzen bide duelako justiziaren ideiari indarraren eta jauntxokeriaren ideia nagusitu zaiola oraingo sistema kriminalean; **akusatuak** eta konbiktuak nahasi botatzen direlako kobazulo berera. Juan Martin Elexpuru

Exekuzioak justifikatu dituzte bi **akusatuk**. Berria - Mundua

Hortaz, gehiengoaren iritziaren alde egin beharra zegoen; eta hainbana bazeuden, **akusatuaren** alde egiten zen delitu-kasuetan; zor-kasuetan, zordunaren alde; oinordekotza-kasuetan, auziperatuaren alde. Iñaki Iñurrieta

Delitu txikietan, **akusatuaren** errugabetasun-probabilitatea gutxitu egiten denez, luzatu egin behar da ikerketa-denbora. Juan Martin Elexpuru

Horrela jokatzen al duzu bekatari gizajo bat **akusatuen** jarlekuan duzunean? Lopez de Arana

Akusatuen eserlekuan egongo da berriro Emilio Ibarra BBVAko presidente ohia aurki. Berria - Ekonomia

Akusatuen aulkian zeuden Pedro bera, Royo, Nabo eta beste hainbat gazte, bere patua erabakiko zuten epaileen zain. Jon Maia

Akusatuen arteko diferentzia guztiak desagertzen dira azterketan erabili nahi den bitartekoagatik. Juan Martin Elexpuru

Fiskalak bi **akusatuen** absoluzioa eskatu du. Berria - Euskal Herria

Akusatuon artean Brahim Dahane dago, giza eskubideen aldeko erakundeko burua. Berria - Mundua

Giza akatsa eta jokabide ezegokia egotzi zaie **akusatuei**; haiek salaketak ukatu dituzte. Berria - Mundua

Gogoratu besterik ez zeukan, esaterako, urtebete lehenago, Burgosko epaiketa zela eta, nolako manifestaldiak antolatu ziren herrian, non hildako bat suertatu baitzen, eta

balaz zaurituak ere bai, ETAko **akusatuei** bizia salbatzearren. Pedro Alberdi

Kristalezko kaiola hutsik dago gaur, hiru **akusatu** presoak gainerako epaituen artean eseri baititutzte. Berria - Harian

Nahi duzue **akusatu** errugabeak ihesari ez ematea? Juan Martin Elexpuru

Gure garai hauetan **akusatua** gizakia izan ohi da, edo sozialista, baina Erdi Aroan animalia, arrain, narrasti eta intsektuak auzipetzen ziren. Xabier Olarra

Burumakur, epaia jasotzen ari den **akusatu** baten gisa entzun nituen Umbertoren desenkusa eta argibideak: [...]. Anjel Lertxundi

Ez nauk, izan ere, egon hire zain anaia bere anaia desleialaren zain egoten den bezala, edo adiskidea bere adiskide ihesi joanaren zain egoten den bezala, ez; epailea eta biktima batera dena **akusatuaren** zain egoten den bezala egon nauk. Xabier Olarra

Musharraf hiltzeaz **akusatuari** heriotza zigorra ezarri diote. Berria - Mundua

Akusatu bakarrak izanez, jasan duguna bakarrik jasan dugu. Marzel Etxehandi

· Gregorio Tourskoaren obran ikusten denez, odol hotzean hiltzen zuten, eta **akusatutakoei** entzun gabe, heriotzara bidaltzen zituzten. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agintzeaz akusatuta (3); **akusatu bakoitzak** (3); **akusatu bakoitzarentzat** (3); **akusatu batek** (3); **akusatu baten** (4); **akusatu dituzte** (6); **akusatu du** (4); **akusatu dute** (10); **akusatu duten** (3); **akusatu errugabea** (4); **akusatu eta** (11); **akusatu guztiak** (3); **akusatu zituen** (14); **akusatu zituen atzo** (4); **akusatu zituzten** (3); **akusatu zuen** (22); **akusatu zuen atzo** (4); **akusatu zuten** (10); **akusatua bera** (3); **akusatua bertan** (3); **akusatua eta** (4); **akusatua izan** (4); **akusatua zen** (3); **akusatuak berak** (5); **akusatuak bere** (4); **akusatuak eta** (4); **akusatuak ez** (8); **akusatuak ihes** (3); **akusatuaren abizena** (3); **akusatuek euskaraz** (3); **akusatuek ez** (5); **akusatuen abokatuek** (3); **akusatuen absoluzioa** (3); **akusatuen absoluzioa eskatu** (3); **akusatuen artean** (10); **akusatuen aulkian** (22); **akusatuen aulkian eseri** (4); **akusatuen aulkian eserita** (3); **akusatuen aurkako** (4); **akusatuen defentsak** (3); **akusatuen defentsek** (3); **akusatuen esanetan** (3); **akusatuen eta** (5); **akusatuen galdeketak** (3); **akusatuen gurasoen** (3); **akusatuen jarlekuan** (3); **akusatuetako bat** (3); **akusatuetako bi** (4); **akusaturekin batera** (3); **akusatuta dago** (7); **akusatuta dagoen** (7); **akusatuta daude** (4); **akusatuta dauden** (9); **akusatuta dauden hiru** (3); **akusatuta zegoen** (3); **akusatuta zeuden** (3); **akusatutako bi** (4); **akusatutako bost** (5); **akusatutako hiru** (4); **akusatzen dute** (8); **akusatzen duten** (3); **akusatzen eta** (3); **akusatzen eta kondenatzen** (3); **antolatzeaz akusatuta** (3); **bat hiltzeaz akusatu** (3); **beste akusatu** (3); **bi akusatuei** (5); **bi akusatuek** (5); **bi akusatuen** (7); **bidegabeki akusatu** (3); **bost akusatuek** (3); **burua akusatzen** (3); **du akusatuak** (4); **du akusatuarentzat** (3); **egiteaz akusatu** (12); **egiteaz akusatu zuen** (6); **egiteaz akusatuta** (11); **emateaz akusatuta** (6); **ere akusatuen** (4); **eta akusatu** (4); **eta akusatuak** (8); **eta akusatuen** (4); **eta zortzi akusatuen** (3); **fiskalak akusatua** (3); **gabe akusatu** (4); **gerra krimenez akusatutako** (4); **hartzeaz akusatuta** (3); **hilketaz akusatutako** (4); **hiltzeaz akusatu** (4); **hiltzeaz akusatuta** (12); **hiltzeaz akusatutako** (11); **hiru akusatuak** (6); **hiru akusatuek** (6); **inor akusatu** (4); **izanaz akusatu** (3); **izanaz akusatutako** (5); **izateaz akusatu** (4); **izateaz akusatua** (3); **izateaz akusaturik** (3); **izateaz akusatuta** (16); **izateaz akusatutako** (5); **kide izateaz akusatuta** (3); **krimenez akusatu** (3); **krimenez akusatu zuen** (3); **krimenez akusatutako** (4); **parte hartzeaz akusatuta** (3); **prefeta hiltzeaz akusatuta** (3); **prefeta hiltzeaz akusatutako** (3); **sei akusatuak** (4); **terrorismoaz akusatuta** (4); **torturatzeaz akusatuta** (3); **torturatzeaz akusatutako** (4); **txarrak emateaz akusatuta** (3); **ustelkeriaz akusatuta** (4); **ziren sei akusatuak** (4); **zortzi akusatuen** (5); **zuen akusatuak** (4)

---

akusatzaile *(ETCn **813** agerraldi; cf **salatari** ETCn **1.147** agerraldi)* **1** *izond* akusatzen duena. ik **salatari**.

Ohore handiz gaztigatzen dizut ezen gaur goizean, auzitegian, jaun **akusatzaileak** Valmonteko jaun bizkondearekin azken egun hauetan izan duzun aferaz mintzatu direla, eta beldur izatekoa dela berebat agintariek ez ote zaituzten auzitara eramanen. Jon Muñoz

Fiskalak eta abokatu **akusatzaileen** andanak ere elkarri egin zioten murmurio belarrira nire hitzak entzun bezain azkar. Hasier Etxeberria

Gabetasun horrek gaizkia alegorikoki irudikatzen duten hiru karatula ditu: Satan, zeruko fiskal **akusatzailea**, heriotzaren aingerua; gaitz fisikoa, sufrimendua eta heriotza irudikatzen dituena, eta, azkenez, txarrerako sena, geure barruan xaxaka ari zaigun tentazioa. Xabier Kintana

Gaztea izatea bezalako pasarte biologiko saihestezin bat egotzi zidan ertzainaren hatz **akusatzaileak**. Anjel Lertxundi

Alaba ez zuen komentuan hetsarazi familia desohoratu zuelako, baizik eta beren begiek elkar topatzen zuten aldiko botatzen zion so **akusatzailea** ezin jasanez gehiago. Elena Touyarou

Hala, kontzientzia ezin hertsiago baten jabe egiten nintzela, edo, hobeki, kontzientzia hertsi hura nitaz jabetzen zela eta haren boz **akusatzaileak** eta kondenatzaileak behin eta berriro akusatzen eta kondenatzen ninduela, penatua eta pertsegitua bezala sentitzen nintzen gau eta egun. Joan Mari Irigoien

Masta bat zeru beltzaren salatari eta **akusatzailea**. Felipe Juaristi

Justizia penalaren izaera publikoa, auzi **akusatzailea** eta ez inkisitiboa. Juan Martin Elexpuru

2 (izen gisa)

Ez da kulpadunik kondenatzen egin duen gaizkia hari erran gabe, **akusatzaileak** hari izendatu gabe. Jon Muñoz

Zuzenago da esatea paradisuan Aurelianok jakin zuela dibinitate igartezinarentzat berak eta Juan de Panoniak (ortodoxoak eta hereseak, gorrotatzaileak eta gorrotatuak, **akusatzaileak** eta biktimak) pertsona bakar bat osatzen zutela. Juan Garzia

Orduan ez liokete **akusatzaileek** emakume horri auzi galde hori ukatzen ahalko. Jon Muñoz

Artolaren hitzez oroitzen zara, kolonialismoaren **akusatzaile** etengabe haren madarikazioez. Xabier Montoia

Agrafiaren akusazioak alde on bat du: **akusatzailearen** koordenatu ideologikoak nabarmentzen dituela. Bernardo Atxaga

3 (hitz elkartuetan)

Bai epaile nagusiak, bai herri-**akusatzaileak**, ongi aztertzen dituzte banan-banan eta segurtatu heriotza zigorraren alde daudela, kontra izanez gero ezin baitute halako epaiketa batean juradu gisa parterik hartu. Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akusatzaileen arabera (3)

---

akusatze *iz* salatzea, (norbait) erruduntzat hartzen dela adieraztea. ik**akusazio**.

Izan ere, **akusatzea** askoz errazagoa da, Mogueime gezurretan ari da, Mogueimek gezurra esan zuen. Jon Alonso

Angel Berrueta hil zuen Espainiako poliziaren emaztea ere hilketaz **akusatzea** onartu du Maria Paz Benito Oses instrukzio epaileak. Berria - Euskal Herria

Gaur egun, gazte bat kale eraso batean parte hartzeaz **akusatzea** talde armatuko kide izatea leporatzea da. Berria - Euskal Herria

---

akusazino ik **akusazio**.

---

akusazio *(ETCn **11.356** agerraldi; orobat **akusazino** g.er. eta **akusazione** g.er.; cf **salaketa** ETCn **34.276** agerraldi)* **1** *iz* salaketa.

Goizean jakinarazi zidatenez beste **akusazio** bat ere banuen: ihesean laguntzea. Fernando Rey

Bere ezinikusia hain handia izan ez balitz, erraz jabetuko zen **akusazio** horien guztien zentzugabekeriaz. Xabier Montoia

Yolanda Molinaren kontrako **akusazio** hori poliza baten erranetan oinarritua da. Herria

-Hor dago herentzia -ausartu zen Quenu, bere anaiaren kontrako **akusazio** haiekin minduta. Karlos Zabala

Goiz osoan falta, oturuntzan hasi ziren eztabaidak, gero nire aurkako **akusazio** eta irain bilakatu zirenak. Pako Aristi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aitak galdera bakoitza entzutean izan zitezkeen **akusazio** kriminal guztiak egozten zizkion bere buruari presondegira eraman zezaten oinak kateaz lotuta, hori baitzuen amets. Mauritaniako gelazulo batean, lehoiz betaturiko gauean, Juan de Panoniaren aurkako **akusazio** konplexua birraztertu eta, enegarren aldiz, ebazpena justifikatu zuen. Pello Lizarralde

Berak aldez aurretik irudikatu zuen elkarrizketa katastrofiko bat, **akusazio** formal eta larria. Jon Alonso

3 (hitz elkartuetan)

Galdera era unibertsalean planteatu behar da, edo Europa mailan gutxienez; ez -euskaldunei buruzko Ipuin Orokorra lagun- erakunde jakin bati **akusazio** eran egotziz. Bernardo Atxaga

Prozesu inkisitorial bat irekitzen dio "fedearentzako doktrina arriskutsuak zabaltzeagatik herriari egindako alemanezko sermoietan", Prozesuko **Akusazio** Agiriak zioenez. Joan Mari Lekuona

4 *akusazio akta* *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

Hasieran, abokatuek fiskalaren **akusazio akta** atzera botatzea lortu zuten. ETC-literatura, saiakera

Ez dago lekukoen deklaraziorik, ezta **akusazio-aktarik** ere. ETC-literatura, saiakera

Manu Leginetxe azken hamarkadetako gerren kronista bizkaitarraren hitzetan, "haurrak krudelkeriaren protagonistak dira, gero eta basatiagoa den munduaren aurkako **akusazio akta**". ETC-prentsa

Tortura lazgarrien berri ere ematen du **akusazio aktak**. ETC-prentsa

Kroaziako gerran, hango biztanleei eginiko jazarpenetan 200 zibil baino gehiago hil zituzten, **akusazio aktaren** arabera, eta egoera jasangaitzean atxiloketa ugari ere egin zituzten. ETC-prentsa

Izan ere, **akusazio aktan** leporatzen dizkieten delituetan ez dago atentatu, arma edo lehergailu, edota bestelako indarkeria ekintzei buruzko aipamen bakar bat ere. ETC-prentsa

Krimenaren arrazoiei dagokienez, Politkovskaiak argitaraturiko hainbat artikuluri egiten die erreferentzia **akusazio aktak**. ETC-prentsa

Erakundeko batzorde berezi batek egin du **akusazio akta**, eta iritzi kontrajarriak sorrarazi ditu Beiruten. ETC-prentsa

Horretarako, berau sinatzen duenak uste du Fiskaltzari, edo, hala izanez gero, akusatzaile partikularrari bakarrik dagokiola, **akusazio-akta** eratzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *akusazio partikular*

Abokatuen Elkargoak **akusazio partikular** gisa jardungo du polizia baten aurkako prozesuan. Berria - Euskal Herria

g **Akusazio partikularra** : Familiak iazko irailean bertan erabaki zuen semearen ikaskideen kontra salaketa jartzea. Berria - Harian

Aldi berean, **akusazio partikularrak** beste autopsia bat eskatuko zuela iragarri zuen. Berria - Mundua

6 *akusazio pribatu* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Estatuko Fiskaltzak egin ez duena egiteko **akusazio pribatua** aurkezteko aukera aztertu duzue?. ETC-prentsa

Haren esanetan," **akusazio pribatua** delitua zuzenean jasan duen aldea baino ezin daiteke izan". ETC-prentsa

Akusazio pribatuak hamar urteko kartzela zigorra eta 36 urteko erabateko inhabilitazioa eskatu du, lau emakumeen eta Salhaketaren izenean. ETC-prentsa

Idazki horretan fiskaltzak, herri-akusazioak, akusazio partikularrak, edo **akusazio pribatuak** -hots, epailea ez denak- erruztatuari leporatzen zaizkion egitateen kalifikazio juridikoa eta dagokion zigorra eta ondorio juridikoak ezartzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Delitu pribatuengatiko prozesuetan, aldiz, akusazio bakarra **akusazio pribatua** da (ofendituarena). ETC-zientzia, zuzenbidea

Interpretazio hau, gure ustez, zentzurik gabekoa da egun, aipaturiko aldaketak laidotuaren akusazioa ahalbidetzen baitu (nahiz "akusazio partikularra"-ren ordez, egokiagoa izan **akusazio pribatuaren** deitura). ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *akusazio publiko*

Akusazio partikularra bertan behera geratu izanak, baina, ez zuen geldiarazi **akusazio publikoa**. Berria - Euskal Herria

Akusazio publikoaren arabera, akusatuak garondotik heldu zion biktimari hizketaldi labur bat mantendu ostean. Berria - Euskal Herria

8 *akusazioaren lekuko* *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi)*

Bakarrik utzi zituen Agirre Sesma eta bere alaba, **akusazioaren lekukoetako** bat azken unean erretiratzeko ataka lotsagarrian. ETC-literatura, saiakera

Bera izango zen **akusazioaren lekuko** nagusia epaiketan. ETC-literatura, saiakera

Kontua argitzeko lagungarria bada, prest nago **akusazioaren lekukoa** izateko. ETC-literatura, saiakera

1946ko ekainean, Wisliceny agertu zen **akusazioaren lekuko** gisa, eta Eichmann kondenatzen zuen aitorpena egin zuen. ETC-literatura, saiakera

Txomin Aizpurua ETAko kide ohi eta preso izandakoak adierazi zuen ez duela Egunkariaren sorrera garaiko txostenik ezagutzen -**akusazioaren lekuko** gisa deklaratu zuen-. ETC-entziklopedia

Akusazioaren lekuko Javier Elizegi abokatuak Entzutegi Nazionalean ikusitakoa azaldu zuen: Olabarria ibili ezinean eta begia oso handituta zuela ikusi nuen eta Tobalina sudurrean arazo larria zuela esaka eta begiak noraezean balitu bezala. ETC-prentsa

Ez zuten espero, agian, Milosevic **akusazioaren lekukoak** zorrotz eta trebe galdekatzen hasiko zela. ETC-prentsa

Euren etxeak erreak izan ostean, bizilagun albaniarrak Mazedonia eta Albania alderat haizatuak zirela ere zehaztu zuen **akusazioaren lekukoak**. ETC-prentsa

Jaia, ordea, ez zen erabatekoa: Jorge López, **akusazioaren lekuko** garrantzitsuenetakoa, aurreko egunetik zegoen desagertuta. ETC-prentsa

Eta biek amaitutakoan **akusazioaren lekukoak** hasiko lirateke deklaratzen. ETC-prentsa

Akusazioaren lekukoen aurretik lehenengo bi saioetan auzipetuek deklaratu zuten. ETC-prentsa

Polizia txostenak berretsi besterik ez dute egin **akusazioaren lekukoek**. ETC-prentsa

9 *herri akusazio*

Otano auziko **herri akusazioak** antolatutako manifestazio deialdiarekin bat egin du Batasunak, ohar baten bidez. Berria - Euskal Herria

Herri akusazioa osatzen duten AVT Terrorismoaren Aurkako Taldeak eta Dignidad y Justicia elkarteak, ordea, baldintzarik gabeko kartzela eskatu zuten Diez, Petrikorena eta Barrenarentzat. Berria - Harian

Ez diet erantzungo ez fiskalari ez **herri akusazioari**, haien helburua euskal gazteria kriminalizatzea delako. Jokin Urain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akusazio aurkeztu (3); **akusazio bat** (5); **akusazio batzuen** (3); **akusazio batzuk** (3); **akusazio bera** (5); **akusazio berriak** (4); **akusazio eta** (7); **akusazio ganberak** (11); **akusazio gisa** (7); **akusazio guztiak** (13); **akusazio guztiak ukatu** (7); **akusazio hauek** (3); **akusazio hori** (18); **akusazio horiek** (9); **akusazio horien** (6); **akusazio horren** (3); **akusazio larriak** (5); **akusazio larriak egin** (3); **akusazio moduan** (3); **akusazio partikular** (24); **akusazio partikular bezala** (3); **akusazio partikular gisa** (17); **akusazio partikularra** (11); **akusazio partikularrak** (20); **akusazio partikularrak eta** (7); **akusazio partikularraren** (7); **akusazio partikularreko** (5); **akusazio zehatzak** (5); **akusazioa aldatu** (3); **akusazioa bertan** (3); **akusazioa bertan behera** (3); **akusazioa eta** (4); **akusazioa ez** (5); **akusazioa kendu** (4); **akusazioa osatzen** (3); **akusazioa osatzen duten** (3); **akusazioa ukatu** (6); **akusazioak bertan** (7); **akusazioak bertan behera** (7); **akusazioak egin** (4); **akusazioak ere** (4); **akusazioak eta** (9); **akusazioak ez** (8); **akusazioak gezurra** (3); **akusazioak gezurra direla** (3); **akusazioak gezurtatu** (3); **akusazioak kendu** (3); **akusazioak ukatu** (9); **akusazioak ukatu zituen** (3); **akusazioak zehaztu** (3); **akusazioak zehaztu gabe** (3); **akusazioaren arabera** (14); **akusazioaren beste** (3); **akusazioaren eta** (4); **akusazioaren eta defentsaren** (3); **akusazioaren galderak** (3); **akusazioaren galderei** (3); **akusazioaren oinarri** (3); **akusazioaren ustez** (5); **akusazioari eusteko** (7); **akusazioei ez** (3); **akusazioei ez erantzuteko** (3); **akusazioek oinarririk** (4); **akusazioek oinarririk ez** (4); **akusazioen artean** (6); **akusazioen helburua** (3); **akusazioen oinarri** (3); **akusazioen oinarria** (4); **akusazioko abokatuak** (5); **akusazioko abokatuek** (5); **akusaziorik eta** (3); **akusaziorik ez** (3); **akusaziorik gabe** (4); **aurka egindako akusazioak** (3); **aurkako akusazio** (11); **aurkako akusazioa** (8); **aurkako akusazioak** (17); **aurkako akusazioak bertan** (3); **aurkako akusazioen** (5); **auzitegiko akusazio** (3); **avtko akusazioak** (6); **bere aurkako akusazio** (4); **bere aurkako akusazioak** (4); **bere kontrako akusazioak** (3); **beste akusazio** (7); **beste akusazio bat** (3); **da akusazioa** (3); **dago akusazio** (4); **dio akusazioak** (4); **ditu akusazioak** (3); **du akusazio** (6); **du akusazioak** (8); **dute akusazio** (3); **dute akusazioa** (3); **egindako akusazio** (4); **egindako akusazioak** (8); **epaiketan akusazio** (3); **epaiketan akusazio partikular** (3); **ere akusazio** (3); **eta akusazio** (13); **eta akusazioa** (6); **eta akusazioak** (10); **eta akusazioaren** (5); **eta akusazioek** (3); **eta akusazioko** (4); **eta avtko akusazioak** (4); **eta herri akusazioak** (11); **eta herri akusazioaren** (5); **fiskalak eta akusazio** (3); **fiskalak eta akusazioek** (3); **gabeko akusazio** (3); **herri akusazio** (5); **herri akusazio gisa** (4); **herri akusazioa** (11); **herri akusazioa osatzen** (3); **herri akusazioak** (33); **herri akusazioaren** (17); **izanaren akusazioa** (3); **izatearen akusaziopean** (6); **kide izatearen akusaziopean** (3); **kontrako akusazio** (7); **kontrako akusazioa** (6); **kontrako akusazioak** (15); **kontrako akusazioen** (3); **kontrako akusaziorik** (3); **udala akusazio** (3); **ustelkeria akusazioak** (4); **zuen akusazio** (5); **zuen akusazioa** (4); **zuen akusazioak** (3)

---

akusazione ik **akusazio**.

akusaziopean *adlag* akusazioaren mendean.

Ez harritu gero norbaitek eskola auzitara eramaten badu, komunikazio-istripuen eragile izatearen **akusaziopean**. Joxerra Garzia

Neba Bilboko kartzelan du, Falange de Vizcaya delakoaren buru bera delako **akusaziopean** epaiturik eta 20 urteko zigorra betetzera kondenaturik. Edorta Jimenez

"Euskal kulturaren alde su ta gar lanean aritu den pertsona batek espetxean segitzen du zentzurik gabeko **akusaziopean**", esan zuen. Berria - Euskal Herria

Hauek genozidio **akusaziopean** auzipetu zituen, 1995ean, Jugoslavia Ohirako Nazioarteko Auzitegiak, bainan oraindik atxilotzekoak dira. Berria - Harian

Baina ahizpak ez zuen legearekin arazorik nahi, terrorismo **akusaziopean** arrastatu semearen ama bera terrorista bailitzan. Itxaro Borda

Jaione hil izanaren **akusaziopean**. Hasier Etxeberria

Tongoa egin izanaren **akusaziopean** bota ninditean. Paddy Rekalde

Momentuz bi dira atxilotuak, ETAko kide izatearen **akusaziopean**. Unai Iturriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
kide izatearen akusaziopean (3)

---

akusaziopeko *izlag* akusazioaren mendekoa.

Gauzak horrela, Moskuko Fiskaltzak "hilketa" **akusaziopeko** ikerketa bat abian jarri zuen atzo, baina ordu gutxira itxi egin zuen, azalpenik eman gabe. Berria - Mundua

---

akusmata *iz* akusmatikan aritzen den pertsona.

Zer ziren, zehatz-mehatz, Grosrouvrek aipatutako **akusmata** haiek, eta zergatik sekretuaren betekizun hura? Jon Muñoz

---

akusmatika *iz* bozgorailuen bidez, agertokian inongo musika tresnarik gabe entzuten den musika.

***Akusmatika**, soinuaren irudia eta irudiaren mututasuna* gaiaz hitzaldi-kontzertua eskainiko dute Jean-Marc Chouvel-ek, Reimseko Unibertsitateko Musikologiako katedradunak. Berria - Kultura

---

akusmatiko *izond/iz* akusmatikari dagokiona.

Hipaso izan zen lehenengoetariko pitagoriko bat; hura zen **"akusmatiko"en** buruzagia: iniziaziorako hautagaiena, alegia; Pitagoras, berriz, "matematikari"en gidaria zen, iniziatuena. Jon Muñoz

Aski zitzaion, hain zuzen, pitagorikoek ***akusmatikoa*** esaten zioten hori izatea. Soinua aurrez grabaturik dugun zinta batek, kaxa **akusmatiko** batek, asko laguntzen du; ñabardurak, puntuak eta ukituak daude bertan. Jon Muñoz

-Hortaz, Ruche jauna, **akusmatikoak** ala matematikariak? Jon Muñoz

Akusmatikoenean ala matematikarienean? -galdetu zuen Jonathanek. Jon Muñoz

---

akustika **1** *iz* fisikaren atala, hotsez eta hots uhinez diharduena.

Akustikaren eremua berez zabalagoa da, gizakiok entzun dezakegun oro hartzen baitu bere baitan. Lourdes Oñederra

2 esparru batez mintzatuz, bertan hotsak eta soinuak entzuteko modua gauzatzen duten ezaugarrien multzoa.

Katedraleko **akustikak** hankaz gora jartzen du musikariak ahalegin eta kemen handiz sortutako lanaren erabatekotasuna. Berria - Kultura

-Haitzuloetan sarrarazten zituen Dionisiok presoak, latomiak haitzuloz josita baitzeuden. -Haien aurrean zegoenak **akustika** ezin bikainagoa zuen; zaratarik txikiena anplifikatzen zuen. Jon Muñoz

Hala, bere gurpil-aulki eta guzti kontzertura eraman genuen Greg, eta leku berezi bat gordearazi zuen berarentzat soinu-kontrolaren ondoan, **akustika** hoberena zen aldean. Xabier Olarra

Orain arte, material merkeak eta iraunkorrak erabili ditugu, eta gure ikasgela gehienetako **akustika** ikaragarri txarra da. Berria - Euskal Herria

Jatetxe lasai eta intimo bat, eta **akustika** eramangarriaren dohain erantsiarekin bedeinkatua, zeinari esker, xuxurlaz ari zinela ere, entzun egiten baitzizun solaskideak. Oskar Arana

Harritzekoa duk hor jartzea, **akustika** txarra zagok leku horretan. Harkaitz Cano

Akustika penagarria dik lekuak, bota du bigarren aldiz, intrigatuta. Harkaitz Cano

Gainera, toki ona da **akustika** aldetik. Baluartek ez ezik, Donostiako eta Bilboko auditorioek ere Herbert Von Karajanen exijentzia guztiak aseko lituzkete, **akustika** bikaintasunetik gertu baitute hiruek. Herria

Akustika-arazoetan interesaturiko ingeniari elektroniko batek lehen-lehenik mikrofono bat jarriko luke aztertu nahi dituen soinuak jasotzeko eta soinuok bulkada elektriko bihurtzeko, bulkada elektrikoak praktikoagoak baitira grabatzeko eta gero aztertzeko. Irene Aldasoro

Azpiegitura handi horiek errepideetako garraio motorduna eta auto pribatuen gehiegizko erabilera bultzatuko lituzkete, ondorioz atmosfera zein **akustika** arloko kutsadura, berriztagarriak ez diren energia zein lehengaien kontsumoa eta trafiko istripuen, hipoteka urbanistikoen, paisaiarekiko erasoak eta hiri zein nekazaritza lurren okupazioa areagotuta. Berria - Mundua

3 ***akustika arkitektoniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Akustika arkitektonikoa akustikaren adar bat da, arkitektura munduari dagokiona, eta edozein motatako eraikinen akustika era kontrolatu batean menderatzea du helburu, bai etxebizitzetan isolamendu akustiko egokia lortzeko bai lokalen egokitzapen akustikoa hobetzeko. ETC-entziklopedia

---

akustiko *(orobat **akuztiko** g.er.)* **1** *izond* akustikarena, hots eta soinuei dagokiena.

Hartara fonologiak, iker-eremu den bezainbatean, aztertu beharko du hizkuntzak ahoskatu eta hautemana (hotsezko, **akustiko**) izateari zor diona. Lourdes Oñederra

Eragile jarraitu eta mailakakoa den seinale **akustikoa**, gure oharmenak kategoria ezberdin ez-jarraituetan banatzen du. Lourdes Oñederra

Maria ohera hurbildu eta, aulkian eseri aurretik, inspekzio **akustikoa** pasatuko ez lukeen musu bat eman zion. Unai Elorriaga

'Itsasoa labirinto arriskutsua bihurtu da balearentzat,' esango du batek. 'Sareak zabalik uzten dira, batzuetan hogei kilometro luzerakoak; ura kutsatu egiten da itsaso guztietan, petrolio plataformak ugaltzen diren artean; kutsadura **akustikoak** ere norabide zentzua kentzen die eta, noraezean, edonon hondartzen dira. Joseba Sarrionandia

Nire baitan irudi egin nuen gizonak ez zuela belarririk, baina susmoa bazuela, guk beste hainbeste misterio ezkutu susmatzen ditugun bezala, hotsa badela, fenomeno **akustikoak** konstatatzen zituela, baina ezin zuela ez erabaki zer diren, ez nondik datozen asmatu. Josu Zabaleta

K hizkuntza ikergaitzat harturik, hauxe aurkitzea da arazoa: mintzamenaren fluxuaren elementuen banaketa, propietateak eta egiturazko konbinazioak; fonemak eta ezaugarriak, uhin **akustiko** baten edo artikulazio-mugimendu batzuen segmentutzat harturik. Itziar Laka

Kate **akustikoa** ez da denbora berdinetan zatikatzen, inpresio banakoa ezaugarritzat duten denbora homogeneoetan baizik. Isabel Arrigain

Azterketa honen asmoa ez da osoa izatea, oraindik ere bereiz baikenitzake sentipen **akustiko** garbia, sentipen hori irudi **akustiko** sorrarekin identifikatzea, ahoskuntzaren

gihar irudia eta abar. Isabel Arrigain

Hainbat ikur **akustiko** pentsamenduaren masan egindako hainbeste zatiketari aurrez aurre jartzearen ondorioz, balio sistema bat sortuko da, eta sistema hori izango da, hain zuzen, ikur bakoitzaren barruan benetako lotura zertzen duena elementu fonikoen eta psikikoen artean. Isabel Arrigain

Gauzak zentzurik estuenean hartuta, hotsak egitura **akustiko** erregularra du, musikala. Lourdes Oñederra

Hizkuntzak, kanporatzeko, besterengana iristeko duen bidea hotsarena da eta hotsaren izaera **akustikoa** da. Hizketaren izaera **akustikoa** da. Lourdes Oñederra

Batzuetan, ordea, fonologialariak ezin ditu izen artikulatorioak erabili izen **akustikoen** ordez. Lourdes Oñederra

Fonetika **akustikoak** aztertzen ditu hizketan hizkuntza entzulearengana helarazteko ekoizten diren hotsak. Lourdes Oñederra

Horretarako fonetikan hizketa-hotsaren ezaugarri guztiak (**akustiko** eta artikulatorioak) dira garrantzizko. Lourdes Oñederra

Egia esan, aski da Kixoteko parrafo bat edo beste ikuskatzea Cervantes estilista ez zela sumatzeko (gutxienez hitzaren oraingo adiera **akustiko** -apaingarrian) Juan Garzia

2 anplifikadore elektrikorik gabe zertzen dena.

Folketik edaten du melodia eta giro intimista eta zinematografikoak lantzeko, eta musika tresna **akustikoen** ñabardurez janzten ditu kantu malenkoniatsu bezain gertukoak. Berria - Kultura

Bakeroz jantzitako pertsona arrunt bat estadio erdigunerantz doa gitarra **akustiko** bat lagun bakar hartuta. Harkaitz Cano

Hiru gitarra ekarri zituen musikariak, bi **akustiko** eta hamabi hariko hirugarren bat. Berria - Kultura

Hemen da bueltan, banjoz, dobroz, eskusoinuz eta bestelako tresna **akustikoz** inguratua. Berria - Kultura

Bera agertu baino lehen bi gitarra ikusi genuen agertokian: 1927ko *national guitar* metaliko bat eta 1954ko *Martin* **akustiko** bat. Berria - Kultura

'Power-pop'-a eta rock **akustikoa**. Berria - Kultura

Kontzertu **akustiko** batean geunden. Berria - Kultura

Hiru taldeen emanaldi **akustikoa**, kale ikuskizuna eta *L´Ham de Foc* taldearen kontzertua izango dira. Berria - Kultura

Aurteko artista, talde **akustiko** onena, saxo soprano jotzailerik onena eta urteko konpositorea. Berria - Kultura

EBetako folk eta blues **akustikoaren** ahots berri eta berezienetako bat da; bihar Bilbon izango da. Berria - Kultura

Banharten musikak blues eta folk **akustiko** zaharraren airea du. Berria - Kultura

Biok blues musika zaharreko diskoa grabatzeko asmoa dugu; erabat **akustikoa**. Berria - Kultura

Abestiaren hitza nabarmenduko zuen bertsio **akustikoagoa** egin nahi nuen. Berria - Kultura

Anarik formatu **akustikoan** joko du bihar Donostiako Lugaritz kultur etxean. Berria - Kultura

Artista frantziarraren taldearena izan zen saioa hasi zuen abestia, gaueko **akustikoena** suertatu zena. Berria - Kultura

3 (izen gisa) musika tresna akustikoa; emanaldi akustikoa.

Akustikoa hartu zuen (elektrifikatua zegoen) eta horrela hasi zen akorde eta soloen dantza. Berria - Kultura

Zaila da ordubetetik beherako emanaldi batek jaialdi osoa salbatzea, eta, beraz, Mike Farrisek igandean Johnny Cashen omenaldian eskainitako **akustiko** bikainak ez zuen lortu. Berria - Kultura

4 ***egokitzapen akustiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Esparru zehatz bateko (itxia edo aire zabalekoa) **egokitzapen akustikoaren** helburua da iturri batetik edo batzuetatik datorren soinua norabide guztietan era berdinean hedatzea, soinu-eremu ideala lortuz. ETC-entziklopedia

Esperimentazio akustikoari ere ez diote muzin egin, Beste aldean kantuak bere **egokitzapen akustikoa** dauka. ETC-prentsa

Beraz, **egokitzapen akustikoa** eta elektrikoa, errefrigerazioa eta argiztapena oso zorrotzak izango dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *elektro akustiko* ik **elektroakustiko**.

6 ***energia akustiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Soinu jakin batek sor dezakeen **energia akustikoa** gure gorputzaren zirrikituetatik -ez soilik belarrietatik- sartu eta tenperatura jakin batera berotzen denean, energia horren mailaren arabera, gure barne organoak likido bihurtzeko ahalmena du soinuak. ETC-prentsa

Energia akustikoaren hedatze-abiadura ingurune batean, metro karratuko wattetan adierazia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Material biskoelastiko bidezko moteltze teknika pasiboak bibrazio estrukturalak kontrolatzeko eta **energia akustikoak** disipatzeko teknika merkeak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Transduktore mota berriak ere sortu ziren (**energia akustikoaren** sorgailu eta hartzaileak). ETC-entziklopedia

Soinu hauek beranduegi azaltzen dira **energia akustikoaren** erreflexua izateko. ETC-entziklopedia

Izan ere, barrualdean jarrita badago, material isolatzaile baten helburua soinua xurgatzea izango da eta, aldiz, kanpoaldean jarrita badago, **energia akustiko** hori islatzea izango du helburu, esparruan sartu ez dadin. ETC-entziklopedia

Mikrofono bat transduktore akustiko-elektriko bat da. Hau da, energia mekaniko bat, kasu honetan **energia akustikoa** energia elektrikoan bihurtzeko gaitasuna duen gailua da. ETC-entziklopedia

7 ***fonetika akustiko***

Esan daiteke **fonetika akustikoa** fonetika artikulatorioaren osagarri dela. Lourdes Oñederra

8 ***gitarra akustiko***

Dudarik ez, nahiz eta bi **gitarra akustikoz** bakarrik baliatu. Berria - Kultura

"Egitarau oso arraroa» interpretatuko dute **gitarra akustikoarekin** eta bereziago batzuekin. Berria - Kultura

Eta horrela agertu zitzaigun: bakar-bakarrik, **gitarra akustiko** zahar baten laguntzaz (zaharra, baina soinu bikainekoa). Berria - Kultura

Sorpresa bat zegoen iragarrita partiduaren aurretik eta ez da nolanahikoa izan; bakeroz jantzitako pertsona arrunt bat estadio erdigunerantz doa **gitarra akustiko** bat lagun bakar hartuta. Harkaitz Cano

James Joyceren poema batekin egindako abesti bat dago, Golden Hair, horixe jartzen dut lehen-lehenik, **gitarra akustiko** bat entzuten da geldo hasieran organo elektriko leun batekin batera. Mikel Hernandez Abaitua

9 ***isolamendu akustiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **57** agerraldi)*

Hala ere, bi termino hauek ezberdindu behar dira: **isolamendu akustikoa** eta xurgatze akustikoa. ETC-entziklopedia

Irrati-estudioak **isolamendu akustiko** egokia behar du, kanpoko soinuak eta zarata ekiditeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lokal komertzialei buruz jardun dugunean aurreratu dugunez, giro-erosotasuna eta **isolamendu akustikoa** dela eta, sabaietan 50 cm-ko tartea utzi behar da, gutxienez, zarataren kontrako tratamendu eraginkor bat ezartzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Isolamendu akustikoa eta termikoa egin behar izan genituen. ETC-prentsa

Orain artean, 9,6 milioi euro jarri dituzte **isolamendu akustikoko** lanak egiteko. ETC-prentsa

Ez dute ezagutarazi salerosketaren zenbatekoa, baina Taldek azaldu du Ameriketako Estatu Batuetara hedatu nahi duela AIT, zeinak eraikuntzarako eta automoziorako **isolamendu akustikorako** materialak fabrikatzen baititu. ETC-prentsa

Aeronautikan, partaidetza du Burdinberri tresneria egilean, eta automozioan, berriz, **isolamendu akustikorako** materialak ekoizten dituen Bartzelonako AITn. ETC-prentsa

Loiuko (Bizkaia) Aireportuko **Isolamendu Akustikorako** Planaren harira, 106 etxebizitza isolatu dituzte orain arte soinurik ez entzuteko. ETC-prentsa

10 ***isolatzaile akustiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Ezin da esan **isolatzaile akustiko** espezifikorik dagoenik, isolamendu termikoetan ez bezala. ETC-entziklopedia

Sailkatzeko zailak diren hondakin industrialetatik material berriak sortu dituzte, hala nola oholak, **isolatzaile akustikoak** eta erregaiak lortzeko osagarriak. ETC-prentsa

11 *kontzertu akustiko*

Kontzertu akustiko batzuk egin nituen garai batean, zigilu txiki bat sortu AEBetan... baina egia da une batean musika mundutik kanpo ikusi nuela neure burua». Berria - Kultura

Halaber, hiru egunetan irailaren 10, 11 eta 12an americana musikako **kontzertu akustikoak** egingo dira eguerdietan Gasteizko Azkena aretoan. Berria - Kultura

12 *kutsadura akustiko*

Kutsadura akustikoaren aurkako neurriak hartu ditu Pakistanek. Berria - Gaiak

Ura kutsatu egiten da itsaso guztietan, petrolio plataformak ugaltzen diren artean; **kutsadura akustikoak** ere norabide zentzua kentzen die eta, noraezean, edonon hondartzen dira. Joseba Sarrionandia

Ez da alkoholaren usain pisua edo **kutsadura akustikoa** ere: turistak gara. Harkaitz Cano

Inguruko herrietan gehiegizko **kutsadura akustikoa** dagoela salatu du plataformak. Berria - Euskal Herria

13 *musika akustiko*

"Gaztelupeko hotsak" disko etxean agertzen da lan hau, etxe honek indar handia egiten du **musika akustikoari** eta kantarien hitzei lehen tokia emaiten dioten obrak publikatzeko. Herria

14 *potentzia akustikoaren maila* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Potentzia akustikoaren mailak, iturri batetik uhin forman igorritako energia kantitatea neurtzen du denbora unitateko. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **akustiko bat** (5); **akustiko batean** (3); **akustiko eta** (4); **akustikoa da** (6); **akustikoa eta** (8); **eta akustikoak** (3); **formatu akustikoan** (3); **gitarra akustiko** (7); **gitarra akustikoa** (15); **gitarra akustikoa eta** (5); **gitarra akustikoarekin** (5); **kontzertu akustiko** (3); **kontzertu akustikoa** (4); **kutsadura akustikoa** (3); **modu akustikoan** (3); **ondorio akustiko** (3)

---

akustikoki *adlag* era akustikoan.

Perkusio taldea da Mulambo, Mikel Laboaren *Txoriak txori* ezaguna kutsu flamenkoz jantzi du Joselito Albahicinek, rock gordina egiten du Inoizek, eta Markel Telleriak nahiz Denisek **akustikoki** lantzen dituzte beren kantuak. Berria - Kultura

---

akusu *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)* *iz* salaketa. ik **akusazio**.

Azken hau, **akusutik** libratzeko, behor bihurtu zen, baina Kronos, maltzurki, zaldi bihurtu zen eta berarekin elkartu zen. ETC-entziklopedia

---

akutu 1 *iz* eritasunez eta kidekoez mintzatuz, bat-batean eta indarrez gertatzen dena eta oso luze irauten ez duena.

Gaixotasun **akutu** horrek konbultsioak eragin zizkion; itsu bihurtu zen ia; perlesiak zangoak hartu, arnasa ia gelditu, eta koman sartu zen hamar egunen buruan. Xabier Olarra

Ez zen harritzeko ere, hainbestean, begien ahalegin edo erabilera jarraituaren ondorioz begi-neke **akutuko** aldiak izatea Virgilek. Xabier Olarra

2 soinuez mintzatuz, uhin maiztasun altukoa.

Ondoren, sakelan daukan plastikozko trunpet ttipi bat ezpaineraturik, uzker gisako soinu **akutuak** ateraiaz airoski da lekutzen kontsultatik pazient bipila. Jose Angel Irigaray

3 *arnas sindrome akutu larri* *(corpusean ez dago; ETCn 9 agerraldi)*

Arnas sindrome akutu larria (ASAL euskaraz, "SARS" ingelesez) koronabirus batek sortutako arnas-aparatuko gaixotasun larria da, 2002an Txinan agertu zena. ETC-entziklopedia

ASAL (**Arnas Sindrome Akutu Larria**) delako asiar pneumoniak bazterrak asaldatu ditu mundu guztian barrena. ETC-literatura, saiakera

4 *irradiazio akutuaren sindrome* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Irradiazio akutuaren sindromea, antzina izpien gaixotasuna, gorputz atal baten ehun biologikoak erradiazio ionizatzaile dosi indartsu baten eraginpean egotearen ondorioz agertutako eta oso hilgarriak diren sintoma multzo bat da. ETC-entziklopedia

5 *miokardio infartu akutu* *(corpusean ez dago; ETCn 63 agerraldi)*

55 urterekin hil zen, **miokardio infartu akutu** batek jota. ETC-entziklopedia

EKG-ak gaixotasun koronarioak eragindako arazo kardiakoen seinaleak adieraz ditzake eta baita pazienteak inoiz **Miokardio infartu akutu** edo miokardio infartu bat izan duen edo momentu horretan izaten ari den. ETC-entziklopedia

Miokardio infartu akutuak jota hil zen. ETC-entziklopedia

---

akuztiko ik **akustiko**.

---

akzelerazio ik **azelerazio**.

---

akzent ik **azentu**.

---

akzentu ik **azentu**.

---

akzesio *(corpusean ez dago; ETCn 61 agerraldi)* *iz* lurraldearen gaineko eskumena bereganatzeko titulu juridikoa; ondasun baten titularrak duen eskubidea bere egiteko ondasunak ekoizten duena edota ondasunari atxikitzen zaiona.

Hipoteka hedatzen da hipotekaturiko ondasunen berezko **akzesioetara**, hobekuntzetara eta ondasun hipotekatuak direla-eta horien jabeari eman edo zor zaizkion kalte-ordainetara. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konkista-ondasunen **akzesio** edo gehikuntzak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Espainiako zuzenbidearen oinarrizko printzipioekin bat etorriz, indarrean diraute gauzen jabetza eta zatiketari buruzko kontzeptuak, **akzesio**-printzipioak eta jabekidetza-printzipioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Usukapio, **akzesio** edo okupazio bidezko eskurapena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina **akzesioz** "osagarriaren" jabetza eskuratzeko derrigorrezkoa da atxikimenduak atzeraitzultzerik ez izatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

akzesit *(ETCn 19 agerraldi; orobat* ***accesit****, ETCn* ***108*** *agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***accesit*** *agertzen da) iz* lehiaketa batean ematen den ordainsaria, sariak baino maila apalagokoa.

Debarrik onenarentzat nahiz 18 urtetik beherako lehiakide onenentzat sari eta **akzesitak** egon ohi badira ere, aurten ez da halakorik izan. Berria - Kultura

Jasotako sarien artean, aipatzekoak dira, Kirikiño Saria (1982), Donostia Hiria saria (1983), Azkue XI Nobela saria (1985), Jon Mirande Nobela **akzesita** (1989) eta COPE literatur saria (2000), ibilbide literarioari eskainia. Ana Urkiza

Besaingo Udalak, CAF enpresak / eta Elkarlanean argitaletxeak antolaturiko / II. IGARTZA saria / idazle gazteentzako bekan **akzesita**. Jasone Osoro

Beka bat emateaz gain, **akzesitak** ere izan daitezke. Berria - Kultura

Berlinen da egunotan, eta, adierazi duenez, oso lagungarri izango zaizkio **akzesitarekin** jasotako 3.000 euroak. Berria - Kultura

---

akzeso *iz* sarbidea, sarrera.

Nire osotasun fisikoa arriskuan jarriz behin baino gehiagotan igaro nuen errepidea igaro ezin zitekeen lekutik (han ez zen ez zebra pasabiderik eta ez semaforik), baina zubirako **akzesoa** aurkitu ezinik jarraitzen nuen. Harkaitz Cano

Bell Atlanticera berriro deitu eta zera esan ziguten: teknikariak ez zuela etxeko **akzesoa** aurkitu. Harkaitz Cano

---

akzesorio *izond* osagarria.

Ikerketaren lasterraldi honetan hausnarketa meta-zientifikoek (hots, etikak) zer esan gutxi dute, modu **akzesorioan** eragiten baitiote bere burua proiektu zabalago, globalago baten barruan antzematen ez duen jarduera bati. Berria - Gaiak

---

akzidental *izond* ustekabekoa, ezustekoa; noiz-nolakoa.

Bekatuak eta hauen ondorio diren zigorrak ez dira izakiak, izakien egoera **akzidentalak** baizik. Imanol Unzurrunzaga

Bereizkuntza honek Espainiako historian esentziala eta **akzidentala** banatzea ahalbidetzen dio; eta positiboa eta negatiboa. Joxe Azurmendi

Santo Tomasek idazten du, kanpoko egintza handi guztiei, denik eta handienak direla, kanpoko egintza izatetik igarotzen ez diren bitartean, ez dagokiela sari **akzidentala** besterik. Joan Mari Lekuona

Hori duk istorio triste baina polit horren zatirik inportanteena, osterantzekoa **akzidentala** izan duk. Josu Landa

Kasu **akzidentalak**, kasualitatezkoak, txiripaz proposizio egiazko suertatzen direnak. Askoren artean

Aipatu diren azterketa guztiei dagokienez, bera ez da euskarria edo substantzia **akzidentala** baino: azterketa logikoan izango da proposizioaren egitura atera eta definitu denean "geratzen" dena. Xabier Arregi

Jatorrizko intentzioak bereizten ditu berezko funtzioa eta funtzio **akzidentalak**. Askoren artean

Aipatu testu horretan helburu nagusi bat zuen, hau da, gustuaren inguruan sorturiko desadostasunak jendeak dituen ezaugarri **akzidentalek** eragindakoak direla frogatzea. Askoren artean

---

akzidentalki *adlag* era akzidentalean.

Ahalez edo **akzidentalki** existitzen den infinituari dagokionez, alde batetik horren existentzia frogatua da jada; horretara, adibidez, tamaina bat birtualki infinituraino zati daitekeela erakutsi da, eta denbora ere bai. Xabier Kintana

Gizonek elkarteko eta elkarren konpainiaz gozatzeko dituzten kausak modu sakonagoan hausnartzen baditugu, berehala ikusiko da hau ez dela gertatzen beste erremediorik ez duelako, **akzidentalki** baizik. Esteban Antxustegi

---

akzidentaltasun *iz* akzidentala denaren nolakotasuna.

Osagabea izan ez dadin, aipatutako ezagutzaren hiru baldintzei laugarren bat gehitu beharko genieke: **akzidentaltasunik** eza. Askoren artean

---

akzidente 1 *iz* zerbaiten esentziari lotua egonik haren osagarri nahiatezkoa ez den gauza.

Akzidenteak existitzen dira, eta horiek substantziaren ideiari erantsiriko nozioak dira, eta ez dago gorputz bat bera ere horrelakorik ez daukanik. Xabier Kintana

Zerbaitek aldakuntzaren poderioz lortu edota gal dezakeen orori deitu ohi zaio **akzidente**. Imanol Unzurrunzaga

Jainkoaren bila zebiltzan arimak nola bereiziko zituzten erlijioaren funtsa eta bere **akzidenteak**? Iñaki Mendiguren

Predikatua izan daiteke berezitasunen bati loturikoa, funtsezkoa edo esentziala izan gabe, **akzidente** bati dagokiona; adibidez, "Sokrates itsusia da" esaldian gertatu legez. Askoren artean

Agerpenen arteko hartueman errealen kategoriei dagokienez, substantziaren kategoria bere **akzidenteekin** batera ez da egokia gertatzen ideia transzendental baterako. Ibon Uribarri

Ez dago substantzia eta **akzidente** besterik, eta forma fisikoak berak ere **akzidenteak** dira. Xabier Kintana

Substantzia, Izpiritu unibertsala da, honen historia; herrien izpirituak haren **akzidente** aldakor iragankorrak baino ez dira. Joxe Azurmendi

Honek esan nahi du adigaiok direla guk zerbait gauza gisa pentsatzeko baliabidea, eta beraz, handitasun determinatu edo kantitate gisa, substantzia edo **akzidente** gisa, kausa edo efektu gisa, elkarreragin osoan dauden substantzia gisa pentsatzeko baliabidea direla. Ibon Uribarri

Bide beretik diotenez, substantzia ezin bilaka daiteke **akzidente**, ez eta **akzidentea** substantzia ere, eta gorputz bat ezin sar daiteke beste gorputz baten barruan. Xabier Kintana

Hipotesia honako hau da: ez dela beste izaki sentikorrik substantzia eta **akzidenteaz** besterik; erran nahi baitut, substantzia bakuna, hots, atomoa, beroni egozten zaizkion **akzidenteekin** batera. Xabier Kintana

Agerpenen arteko hartueman errealen kategoriei dagokienez, substantziaren kategoria bere **akzidenteekin** batera ez da egokia gertatzen ideia transzendental baterako. Ibon Uribarri

Akzidentearen benetako nozioa honetan datza: ezin iraun dezakeela ez eta izaten jarraiki bi denboraz, hau da bi istantetan. Xabier Kintana

Substantzia bakun batek biziaren **akzidentea** ez badauka, orduan nahitaez heriotzaren **akzidentea** eduki beharko du, elkarren aurkako azkzidente biren artean, edukitzaileak ezinbestean bat eduki behar duelako. Xabier Kintana

Gauza jakina da existentzia existitzen denari helduriko **akzidentea** dela; horrexegatik, existitzen denaren "zertasuna"ren eranskina da. Xabier Kintana

Horrela, nolabait esan, gorputzasunaren gainetik igoarazi zuten, horregatik gorputzasunaren zirkunstantzien gainetik goratu gabe, beroriek **akzidenteak** baitira, hau da, arimaren gaitasunak, hots, guztiak "nolakotasunak". Xabier Kintana

Denbora mugimenduaren **akzidentea** da, hura osatzen duena. Xabier Kintana

Izan, lehen noziozkoa da atributua berak kalifikatzen duen subjektuaren esentzia ez bezalako zerbait dela, esentziaren nolabaiteko zirkunstantzia alegia, eta beraz, **"akzidente"** bat. Xabier Kintana

Pertsona garaia dela, kolore zurikoa eta ile urdinak dituela, eta horrela haren **akzidenteen** bitartez aurkeztuko zenioke. Xabier Kintana

Adimenaren bitartez bereizten da funtsezko atributua eta **akzidentezkoa**. Xabier Kintana

Akzidente soil hori, hau da, higidura zirkularra -erran nahi baitut zeruko esferaren mugimendua-, ez da jaioa eta ezin da **akzidente** jaioen artean sailkatu behar. Xabier Kintana

Forma, ordea, bere aldetik, betiere berez aktiboa eta **akzidentez** pasiboa da, Fisika liburuetan irakasten den bezala. Xabier Kintana

Bere baitako kausa dela Jainkoa eta ez **akzidentezkoa**. Piarres Xarriton

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ezjakintasuna, haien aburuz, **akzidente** positiboa baita. Xabier Kintana

Gurean konflikto biolentoa **akzidente** historiko bat da eta konflikto politikoa, ordea, beste **akzidente** historiko bat izanda ere, gatazka politikoaren konstantea da. Berria - Euskal Herria

Akzidente bereizgarriak gal dezake bere existentzia, ez aldebanatuz, bai, ordea, aldakuntzaz. Imanol Unzurrunzaga

Emanak izan zaizkigun batasun guztien ezabapen sistematikoak bidea ematen digu, lehenik, enuntziatua berrezartzeko bere gertatzearen singulartasunean, eta erakusteko jarraitasun-eza **akzidente** handi horietako bat dela, faila bat eragiten duena historiaren geologian eta baita enuntziatuaren akto sinplean ere. Xabier Arregi

Ezein **akzidentek** ez du inoiz errotuta dagoen subjektua gainditzen. Imanol Unzurrunzaga

Lehen **akzidentea** luma mugitzeko dudan borondatea da; bigarren **akzidentea**, bera mugitzeko daukadan ahalmena da; hirugarren **akzidentea**, giza mugimendua bera da, erran nahi baita, eskuaren mugimendua, eta, azkenik, laugarren **akzidentea** lumaren mugimendua. Xabier Kintana

3 ezbeharra; istripua.

Akzidente bat baldin baduzu eta zure buruan odol isurtze bat baldin bada, memento batetako gertakariak bate ez dira enregistratuak izanen. Menane Oxandabaratz

Izan dut **akzidente** bat, auto **akzidente** bat, eta entseatu naiz gogoetatzerat berriz. Menane Oxandabaratz

Edo errekontruz, edo **akzidentez** zerbait galdu duenak badu gogoeta egiteko sobera asti. Menane Oxandabaratz

Bakoitzari bidean bere **akzidenteak** eta zirkunstantziak egokituko zaizkio, baina finean, ez dago beste ezer. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akzidente bat (16); **akzidente bat dela** (3); **akzidente batek** (3); **akzidente batzuk** (3); **akzidente gisa** (3); **akzidente guztiak** (3); **akzidente hori** (4); **akzidente horiek** (3); **akzidente mota** (4); **akzidentea da** (4); **akzidentea substantzia** (3); **akzidenteak dira** (6); **akzidenteak direla** (3); **akzidenteak ere** (3); **akzidenteak ez** (6); **beste akzidente** (7); **edo akzidente** (4); **eta akzidente** (5); **eta akzidenteak** (4); **eta akzidentez** (3); **halako akzidente** (4); **heriotzaren akzidentea** (4); **horren akzidente** (3); **sorturiko akzidentea** (3)

---

akzio *(orobat **akzione** g.er.)* **1** *iz* sozietate anonimo batean, kapitala banatua dagoen zatietako bakoitza.

Aitak **akzio** batzuk zituen. Juan Kruz Igerabide

Michigango Banku baten presidentearengana jo omen zuen aholku bila, **akzio** batzuk erosi nahi zituelako edo. Pello Salaburu

Atzo enpresaren 150 mila **akzio** eskualdatu ziren (bolumen maximoa, azken bi hilabeteotan behintzat). Berria - Ekonomia

1929ko hondamena baino sei hilabete lehenago bere **akzio** guztiak saldu zituen; eskudiru asko zeukan eskudirua gauza bakana zen garaian, eta harekin eraikinak erosi zituen. Koro Navarro

Txeke oparo bat eman zion eta balore seguruko hainbat **akzio**; eta haren begi argiek busti antza ziruditen agur esan zionean. Mirentxu Larrañaga

Harryren gainerako ondasunak -bankuko kontu mehetua, **akzio** eta Estatu-obligazio gutxi batzuk- bere hartan atxikirik zeuden orobat. Oskar Arana

1999ko abenduan, Jazztel konpainiaren **akzio** bakoitza 59 euro inguru ordaintzen zen, gaur egun 0,20 euro ordaintzen da. Iñaki Heras

SABADELL (%1,02) bankuak kapitala hedatu du, 46 milioi **akzio** inbertsiogile handiei 14,75 eurotan salduta. Berria - Ekonomia

Ibex-35 indizeko 24 **akzio** igo ziren (gutxi, ordea,) eta 11 jaitsi. Berria - Ekonomia

Auzia konponduta, 35 milioi euro ordainduko ditu Naturgasek 4.640 **akzioren** truke, eta beste 1,6 milioi euroko dibidendua pagatu beharko die, guztira, akziodunei. Berria - Ekonomia

2 (izenondoekin)

Orai artinoko akziodunek lehentasuna dute **akzio** berriak hartzerakoan, akziodun berriak baino lehen. Herria

Txikien erreboltak orekatu zuen **akzio** handienen ganora eskasa. Berria - Ekonomia

Akzio txikiek izan zuten protagonismoa: %2na pasa irabazi zuten Sogecablek eta Prisak onerako, %1,95 galdu zuen Ferrovialek txarrerako. Berria - Ekonomia

Akzio arrunt bakoitzeko 1,3 euro ordaintzen zituzten lehen, eta euro bakarra ordainduko dute aurrerantzean. Berria - Ekonomia

Ibex-35eko **akzio** guztiek izan zituzten galerak. Berria - Ekonomia

", esaten zuen beti amak, eta kexatzen zen gure aitak ez zuelako negozioetarako begi onik, zeren, **akzio** kaxkarren bat ikusi eta segituan, erosi egiten baitzuen. Fernando Rey

3 (hitz elkartuetan)

Salerosketak 1.215 milioi euroak gainditu zituen eta, ekaitz giroan, inbertsiogileak aterpe bila dabiltza, **akzio** azokatik at. Berria - Ekonomia

Akziodun bakoitzari, gehienez, %20ko botoa ematen dio, hortik gorako **akzio** kopurua izan arren. Berria - Ekonomia

Enpresa batek finantzazioa lortzeko burtsara ateratzea erabakitzen badu, lehenik eta behin finantza erakundeen bidez salduko du bere **akzio** harpidetza. Iñaki Heras

Kapitalen merkatu horri deitzen zaio burtsa, eta bertan izaten dira **akzio** erosleak eta saltzaileak. Iñaki Heras

Egunkariaren debekatzearen eta euskarazko egunkari berri baten aldeko informazio bilkura, bideo aukezpena eta **akzio** salmenta, ekainaren 12an, aratseko 7.30etan Uztaritzeko Lapurdi gelan. Herria

Horretarako, lehenik, kapitala %5 handitu beharko du, **akzio** trukean eskaini duten hobekuntzari aurre egiteko. Berria - Ekonomia

JP MORGAN CHASE, AEBetako bigarren bankuak, Bank Onerekin **akzio** trukaketa egin du. Berria - Ekonomia

1602an sorturiko Ekialdeko Indietako Holandar Konpainiaren ereduaren gainean eratu ziren, Ingalaterran (ekimen pribatuaz), Frantzian, Danimarkan, Suedian (estatuaren ekimenez) kolonia-konpainiak, **akzio** bidezko aurreneko sozietate anonimoak izan zirenak. Koro Navarro

4 ekintza.

Egoki da, berbarako, merkataritzako negozioetatik **akzio** errebindikatzaileak aldentzea, merkataritzako gorabeherek gauza higigarrien gainean jokatzen baitute. Andres Urrutia

Liburu-dendan Umbertok eskua hartu zidanekoaz eta **akzio** xume hark sortu zidan zirraraz gogoratu nintzen eta baita Lina emazteri buruz esan zituen hitz misteriotsuez ere: [...]. Anjel Lertxundi

Gure aita **akzio** gizona zen, oso energikoa eta indartsua, bai gorputzez eta baita buruz ere. Ana Urkiza

Une batez, idazten jardun naizen kontuak etorri zaizkit burura, azkar, filmetako **akzio**-irudiak baino azkarrago. Xabier Etxabe

Akzio-erreakzio kontutan maisuak gara hemen, baina alderantzizko emaitzak lortzen. Hasier Etxeberria

Bakarrizketak eta **akzioa** tartekatzen dituen lana da, nagusiki bikoteen artean izaten diren liskar txikiez mintzo dena. Berria - Kultura

Bizia **akzioa** da, baina ez du zertan produkzioa izan. Berria - Gaiak

Mugimendu handia duten irudiak dira, **akzioa** duten argazkiak. Berria - Kultura

Ez ote zaio gertatu, agian, aspaldi bihurrikeria hau egin nahian ibili eta azkenean, aukera izan duenan, **akzioa** egin? Patxi Altuna

Haserrea ez da elkarrizketaren lagun, haserreak **akzioa** eskatzen du. Karlos Linazasoro

5 ***akzio gehiengodun*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Ondorioz talde buruak publikoki eskatu dio Manolo Sainzi, taldearen Pro Tour ligako lizentzia duen Active Bay enpresaren **akzio-gehiengodunari** bere zatia saltzeko eta

lizentzia Kazakhastango babesleen esku uzteko. ETC-prentsa

Ez dugu nahi ahalik eta etekin handiena atera eta bere akziodunen, eta bereziki **akzio-gehiengodunen** artean, ondo geratu nahi duen finantza erakundea. ETC-prentsa

Gatazka konpondu aitzin, elkartasun-greba egin zuten Tolosan, ekainaren 11n eta 12an, eta Talleres Emuako gerente eta **akzio-gehiengodunaren** etxebizitzari sua eman zion ETAk. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *akzio izendun* *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Erabaki horren kopiak titulartasun berria egiaztatzeko agiri modura balioko du, bai kontuko idazpenak aldatzeko eta **akzio izendunak** aldatzeko, bai eta egin beharreko beste edozein administrazio-jardun, sozietate-jardun edo kontularitzako jardun egiteko ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kapital hori sozietatearen partaidetzetan edo **akzio izendunetan** banatuko da eta sozietatearen estatutuetan berariaz adierazi beharko dira jokoaren sektorean xedetzat dituen jarduerak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Akzio Izendunen Erregistro-liburuan inskribatu behar dira (inskripzioa beharrezkoa da sozietatearen aurrean eskubideak erabili ahal izateko). ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *akzio konpainia* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Sozietate anonimoa, baltzu anonimoa, akziokako baltzua edo **akzio konpainia** kapitala akzio izeneko partaidetza-tituluetan banaturik duten sozietate kapitalista da. ETC-entziklopedia

8 *akzio pakete* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Emaitza: droga salmentarekin lortutako dirutza beltz baten jabe zirenak, prozesua bukatzerako, **akzio-pakete** guztiz legezko baten jabe izaten dira. ETC-literatura, saiakera

Aitak ez zuen inolako arazorik izan Tomeu Montanerrekin ezkondu zenean hainbat gauza bion izenean jartzeko, neguan erabiltzen zuten Mallorcako etxea eta udan erabiltzen zuten Alcudiakoa, esate baterako, edota mespretxatzekoa ez zen **akzio-pakete** bat. ETC-literatura, saiakera

Enpresa handien kasuan, **akzio paketeak** burtsara atera ziren, baina operazio mota hori salbuespena izan zen. ETC-prentsa

Tradizioen bizirik irauteak -honelako eta bestelako sozietateen zuzendaritza seguratzen duten **akzio-paketeen** jabetza familiarrak- behialako kudeatzaile-jabe batek bezalaxe portarazten ditu enpresa-zuzendari asko. ETC-literatura, saiakera

Lobby politiko eta ekonomiko moduan ere funtzionatu du; 2000 urtean, esaterako, Shell enpresako **akzio pakete** zabal bat ersoi zuen, enpresak ingurumenaren aldeko proiektuetan sartzea lortzeko. ETC-entziklopedia

9 *akzio penal* *(corpusean ez dago; ETCn **211** agerraldi)*

Emakumeak uko egin zien **akzio penalei** eta zibilei. ETC-prentsa

Ez dituzte **akzio penalak** baztertzen, legezko egoeran dauden pertsonak atxikitzeagatik. ETC-prentsa

Betearazpen-agindua **akzio penala** egikaritzearen ondorioz ematea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Delitu horietan, ofendituaren edo beraren legeordezkariaren barkamenak ez du **akzio penalik** ezta erantzukizun penalik ere azkentzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Delitu edo falta ororen ondorioz, errudunari zigorra ezartzeko **akzio penala** sortzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alderdi bati, alderdi akusatzaileari, zegokion prozesua hastea, eta alderdi horrek **akzio penalik** egikaritzen ez bazuen, ez zegoen prozesurik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Prozesu honen xedea bateragarria da kaltedunak, hedatutako egitateak direla eta, beste izaera batekin izan ditzakeen **akzio penal** eta zibilekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Era berean, bitartekaritzaren bitartez alderdiak adiskidetzeko ahalegina antzua suertatzen bada, fiskalak **akzio penalak** egikaritzea erabaki dezake. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jardueretan **akzio penalak** eta zibilak egikaritzea bere gain hartzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikerketa kriminalaren eta **akzio penal** publikoaren jardueraren norabidea erabaki duen Ministerio Publikoaren kidea da. ETC-entziklopedia

Kereila da partikular batek **akzio penala** egikaritu eta prozesu penalaren parte bilakatzeko modua. ETC-entziklopedia

10 *akzio sorta*

Jose Luis Astiazaran presidenteak eta Jose Luis Barrenetxea lehendakariordeak atzo azaldu zutenez, akziodun berri horiekaurreikuspenak betetzen badira hamar akzioko **akzio sortak** erosi ahal izango dituzte. Berria - Kirola

11 *akzio zatiketa* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Split edo **akzio-zatiketa** enpresa baten akzioen kopurua gehitzeko operazio bat da, horien banakako prezioa jeisteko helburuarekin. ETC-entziklopedia

12 *akzio zibil* *(corpusean ez dago; ETCn **149** agerraldi)*

Legearen arabera, ordea, orain merkataritza epaileen jurisdikzioa "bakarra" da, besteak beste enpresaren ondasunari eragiten dion **akzio zibila** abian denean. ETC-prentsa

Akzio zibil baten objektu den pertsona batek eskubidea du kasua bere bizilekuko auzitegiari igorria izateko. ETC-literatura, saiakera

Akzio zibilek eta reipersecutoriasek ez zeukaten exekutatzeko eperik, betiko baitziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Espainiako estatuko zigor-prozesuan, akzio penalarekin batera, **akzio zibila** ere egikari daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pertsona juridikoek mota guztietako ondasunak eskura eta eduki ditzakete, betebeharrak hartu ahal dituzte, eta **akzio zibil** nahiz kriminalak egikaritu ahal dituzte, legeekin eta euren eraketa-erregelekin bat etorriz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pertsona juridikoek mota guztietako ondasunak eskura eta eduki ditzakete, betebeharrak hartu ahal dituzte, eta **akzio zibil** nahiz kriminalak egikaritu ahal dituzte, legeekin eta euren eraketa-erregelekin bat etorriz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azken horrek dioenez "Pertsona juridikoek mota guztietako ondasunak eskuratu eta eduki ditzakete, baita betebeharrak beren gain hartu eta **akzio zibil** eta kriminalak egikaritu ere, beren konstituzioaren lege eta arauen arabera". ETC-zientzia, zuzenbidea

Mugatutako jabari publikora zein lur bildu eta lur horien gaineko eskubideen **akzio zibilak** bost urtera preskribatuko dira, mugaketa onesten den datatik zenbatzen hasita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Preskripzioa beste bi kasutan etenen da: zordunaren konkurtsoa deklaratzen denean eta zerga zorra kobratzeko **akzio zibilak** edo penalak erabiltzen direnean. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 *akzioen gaineko opzio* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Dimisioez gain, Iberdrolako buruzagiek euren onerako onartutako pentsio planak, **akzioen gaineko opzio** planak eta kontratuen blindajeak bertan behera uzteko eskatu dute akziodun txikiek. ETC-prentsa

14 *akziokako baltzu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

-Itelazpi B.A., Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea (Ogasun eta Herri Administrazio Sailari atxikia); - Trebatzea eta Enplegua Sustatzeko **Akziokako Baltzu** Publikoa - EGAILAN. ETC-zientzia, zuzenbidea

15 *akziozko zinema* *(corpusean ez dago; ETCn **409** agerraldi)*

Hong Kongeko **akziozko zinemaren** sortzailerik esanguratsuena da egun Johnnie To. ETC-prentsa

Kontua da erreferentzia porrusalda horretatik anabasa sortuko dela: Coen anaiak, John Carpenter, Walter Hill, **akziozko zinema** asiarra... ia denetik sartu nahi izan du. ETC-prentsa

Begira zer pasatu den Mad Maxen azken filmarekin: erabat suminduta daude gizon asko, eta pentsatzen dute: "Zertan ari da emakume bat orain arte gurea zen **akziozko zineman**?". ETC-prentsa

"Abduction" (euskaraz "Abduzio"), 2011ko John Singleton estatubatuarrak zuzendutako **akziozko zinema** ekintza thriller film bat da. ETC-entziklopedia

16 *eramailearentzako akzio* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Behin tituluak inprimatu eta emandakoan, **eramailearentzako akzioen** eskualdaketa Merkataritza Kodearen ETC-zientzia, zuzenbidea

Eramailearentzako tituluek, bere titularraren datu pertsonalak ezartzen ez dituztenez, edukitza soila izateagatik gorpuzturiko eskubidea erabiltzeko legitimazioa ematen dute (adibidez, **eramailearentzako akzioa** edo eramailearentzako txekea). ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *herri akzio* *(corpusean ez dago; ETCn **68** agerraldi)*

PPk **herri akzio** bezala hartu nahi du parte kasuan. ETC-prentsa

Herritarrek **herri-akzioa** erabil eta Justizia Administrazioan parte har dezakete, zinpekoen epaimahaiaren bitartez, legeak ezarritako moduan eta berak finkatzen dituen prozesu penaletan, bai eta ohiturazko auzitegi eta auzitegi tradizionaletan ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

125. artikulua: **herri-akzioa** aipatzen da artikulu horretan; horrek ahalbidetzen du prozesu penalean edozein hiritar alderdi akusatzaile gisa aurkeztea, Ministerio Fiskala eta biktimarekin batera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, akusatzeko akzio publikoa eta **herri-akzioa** onartu dira, akzioa ofendituari eta beraren jaraunsleei bakarrik eman beharrean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Herritarrek **herri-akzioa** egikaritu eta Justizia Administrazioan parte hartu ahal izango dute, zinpekoen epaimahaiaren bidez, legeak ezarritako moduan eta legeak berak finkatzen dituen prozesu penaletan, bai eta ohiturazko auzitegietan eta auzitegi tradizionaletan ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Espainiar nazionalitatea duten herritarrek **herri-akzioa** baliatu ahal izango dute, legeak ezarritako kasuetan eta moduetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrela, delitu publikoei dagokienez, edozein herritarrek, delitua jasan duen ala ez kontuan hartu gabe, kereilatzeko eskubidea izango du **herri-akzioa** egikarituz. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akzio arrunt (3); **akzio azokan** (3); **akzio baino** (5); **akzio bakoitza** (3); **akzio bakoitzak** (4); **akzio bakoitzeko** (16); **akzio bakoitzeko etekina** (3); **akzio bat** (5); **akzio batzuk** (4); **akzio berri** (3); **akzio berriak** (3); **akzio erosi** (10); **akzio erosi ahal** (3); **akzio erosi ditu** (3); **akzio eta** (8); **akzio gehiago** (5); **akzio guztiak** (11); **akzio guztiak saldu** (3); **akzio guztiek** (4); **akzio guztien** (3); **akzio hori** (3); **akzio horiek** (8); **akzio horien** (3); **akzio jarriko** (5); **akzio jarriko ditu** (3); **akzio kopurua** (8); **akzio saldu** (6); **akzio salmenta** (3); **akzio zuzenak** (3); **akzioak amildu** (4); **akzioak amildu egin** (3); **akzioak baino** (6); **akzioak baino ez** (6); **akzioak connex** (5); **akzioak erosi** (11); **akzioak erosi ahal** (3); **akzioak erosteko** (17); **akzioak erosteko aukera** (3); **akzioak erosten** (3); **akzioak erostera** (3); **akzioak eskuz** (3); **akzioak eskuz aldatu** (3); **akzioak eta** (3); **akzioak mugitu** (9); **akzioak mugitu zituen** (6); **akzioak saldu** (5); **akzioak salduta** (3); **akzioak salerosi** (18); **akzioak salerosi ziren** (16); **akzioak saltzea** (3); **akzioak saltzeko** (5); **akzioen artean** (11); **akzioen balioa** (5); **akzioen erdia** (3); **akzioen erdiak** (4); **akzioen gehiengoa** (5); **akzioen prezioa** (3); **akzioen prezioak** (5); **akzioen salmenta** (5); **akzioen salmentak** (3); **akzioen salmentari** (3); **akzioen truke** (3); **akziok baino** (9); **akziok baino ez** (9); **akziok egin** (3); **akziok egin zuten** (3); **akziok gora** (3); **akziok soilik** (3); **akzioren truke** (3); **bere akzio** (4); **bere akzio guztiak** (3); **bere akzioak** (14); **beste akzio** (4); **bost akzio** (3); **da akzioa** (5); **da akzioen** (3); **dauden akzioen** (3); **diren akzioak** (4); **dituen akzio** (3); **dituen akzioak** (6); **dituzte akzioak** (6); **endesaren akzio** (3); **enpresaren akzioak** (5); **enpresaren akzioen** (3); **eta akzio** (5); **eta akzioa** (4); **eta akzioak** (9); **eta akzioek** (3); **eta akzioen** (10); **eta akzioko** (3); **euro akzioko** (4); **euroren akzioak** (12); **euroren akzioak salerosi** (7); **fasean akzioak** (3); **hamar akzio** (5); **horren akzioen** (3); **izan zen akzio** (3); **izango dituzte akzioak** (3); **konpainiaren akzioak** (7); **lau akzio** (4); **lau akziok** (3); **milioi akzio** (13); **milioi euroren akzioak** (11); **milioiren akzioak** (30); **milioiren akzioak baino** (5); **milioiren akzioak eskuz** (3); **milioiren akzioak mugitu** (8); **milioiren akzioak salerosi** (11); **urrezko akzioa** (8); **zen akzio** (4); **ziren akzioen** (3); **zituen akzioak** (4); **zuen akzio** (5)

---

akziodun *iz* sozietate anonimo bateko akzioak dituen pertsona edo enpresa.

COREBAn orai 82 langiletarik 76 **akziodun** dira, eta hala izan behar dutela uste dut. Herria

Kapital jaulkitzea gertatzen den une horretan enpresak behar zuen dirutza jasoko du, eta akzioak erosi dituztenak enpresako **akziodun** bihurtzen dira. Iñaki Heras

Akziodunek ikusten zuten 20 milioi franko baditugula inguruko lantegietan ezarriak, horietatik 17 Euskal Herritik kanpo. Herria

Tira, nik **akziodun** aberatsa izateko zortea dudanez, bazkaltzera gonbidatuko haut. Lopez de Arana

Ehun eta Larru Sintetikoak SL Lodzeko enpresako zuzendari nagusia da Ivan eta, garai batean, baita **akziodun** nagusia ere izan zen. Iban Zaldua

Altadis (%2,3) da Aldeasaren **akziodun** nagusia (%30). Berria - Ekonomia

Besteak beste, A68 autobideko **akziodun** nagusia da Abertis. Berria - Ekonomia

Kontseilari ordezkariak Pixarren akzioen erdia duenez, Disneyko norbanako **akziodun** handiena bihurtuko da, eta administrazio kontseiluan eserlekua izango du. Berria - Ekonomia

Reala gipuzkoar **akziodun** txiki askorena izaten jarraitzea da helburua. Berria - Kirola

Akziodun publiko berrien sar arazteko arrazoin nagusia ez da dirua baizik eta Miarritze eta Hondarribiko aireportuen arteko lehiaketa hortarik ateratzea. Herria

BBVAko iturriek aurreratu zutenez, Sacyrrek jada bost postu eskatu ditu administrazio batzordean, **akziodun** ohiekin bat egin eta partaidetza osoaren %8 bildu duelako. Berria - Ekonomia

Orai artinoko **akziodunek** lehentasuna dute akzio berriak hartzerakoan, **akziodun** berriak baino lehen. Herria

Repsol YPF petrolio konpainiak Gas Naturalen bigarren **akziodun** izaten jarraituko du. Berria - Ekonomia

Gonzalezek, azkenik, eskerrak eman zizkien bankuko **akziodunei** eta bezeroei, "elkarrekin" egindako lanarengatik. Berria - Ekonomia

Alavesen **Akziodunen** Batzarra egin zen atzo Gasteizko Villasuso Jauregian. Berria - Kirola

Realak gaur **Akziodunen** Ezohiko Batzarra egingo du 19:00etan Donostiako Ioldi kiroldegian. Berria - Kirola

Akziodunen dibidendua puntu laurden igo eta balioko 0,4165 euro ordainduko dituztela jakinarazi zuen atzo Emilio Botin SCHko presidenteak. Berria - Ekonomia

300.000 akzio jarriko dira salgai, oraingo 9.671 **akziodunei** eta **akziodun** ez diren 19.593 bazkideei zuzenduta. Berria - Kirola

Oraclek espero du Peoplesoft erosteko operazioak beste zentimo bateko mozkinak emango dizkiela bere **akziodunei**, eta zortzi zentimotik gorakoa datorren urtetik aurrera. Berria - Ekonomia

Akziodunei ordaindu beharreko dibidendua erdira jaitsiko du. Berria - Ekonomia

Horien betekizun behinena **akziodunen** aurrean eta horiek burtsa-kotizazioetan dituzten interesei dagokienez erantzutea da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akziodun asko (3); **akziodun baino** (3); **akziodun bakoitzari** (3); **akziodun batek** (6); **akziodun berri** (3); **akziodun dira** (4); **akziodun direnek** (3); **akziodun ez** (9); **akziodun ez diren** (9); **akziodun guztiek** (3); **akziodun nagusi** (9); **akziodun nagusia** (19); **akziodun nagusia da** (4); **akziodun nagusiak** (12); **akziodun nagusiek** (6); **akziodun nagusien** (5); **akziodun nagusien artean** (3); **akziodun txiki** (5); **akziodun txikiak** (3); **akziodun txikiei** (3); **akziodunei eta** (3); **bere akziodunei** (5); **beste akziodun** (7); **bi akziodun** (3); **die akziodunei** (12); **du akziodun** (4); **du akziodun nagusi** (3); **duten akziodun** (3); **enpresako akziodun** (3); **eta akziodun** (11); **eta akziodun ez** (4); **eta akziodunei** (4)

---

akzione ik **akzio**.

---

akzionismo *iz* XX mendearen erdialdeko arte mugimendua, ekintzaren artea izan nahi zuena.

Otto Muehl **akzionismoaren** ordezkari nagusietakoari buruzko atzera begirakoa irekiko du gaur Vienako MAK museoak eztabaida handien artean. Berria - Kultura

---

akzionista *(ETCn **257** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **azkiodun** agertzen da) iz* akzioduna.

Astiazaranek **Akzionisten** Batzar Orokorra deitzeko eskaini zuen prentsaurrekoa, eta ezustean eman zuen hauteskunde deialdiaren berri. Berria - Kirola

Ez KASekin ez ETArekin inoiz harremanik ez duela izan adierazi zuen Elkorok, Iruin abokatuari erantzuterakoan, eta Egin-ekin sorreratik izandako harremanaren berri eman zuen: sorreran parte hartu zuela ehun mila pezeta jarriz, beste bederatzi bergararrekin batera milioi bateko akzioa osatu zutenez **akzionisten** batzarreko kide izan zela hasieratik, 1982tik Administrazio Kontseiluan sartu zela, eta 1994tik 1995era Kontseiluko presidente ere izan zela. Berria - Harian

Erosketa burutu baina lehen, ITPren **akzionistak** Senerrek eta SEPIk osatzen zuten Turbo 2000 sozietatea eta Rolls Royce ziren. Berria - Ekonomia

Halatan, enpresak zuzentzen dituztenen teknokraziaren interesak ez dira, nahitaez, **akzionisten** berdinak, eta horren ondorioz ohikoak izan dira negozioen munduan sona handiko istiluak. Iñaki Heras

---

akzisa *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* *iz* salgai batzuei ezartzen zaien zerga.

Zerga bereziak, Europar Batasunaren terminologian **akzisak** ere deituak, ondasun "jakin" batzuen gainean. ETC-entziklopedia

Kongresuak autoritatea izanen du honakoetarako: kontribuzioak, eskubideak, zergak eta **akzisak** ezartzeko eta jasotzeko, zorrak ordaintzeko eta Estatu Batuetako segurtasun komuna eta ongizate orokorra artatzeko; baina eskubide, zerga eta **akzisa** guztiak uniformeak izanen dira Estatu Batuetan zehar; ETC-literatura, saiakera

Baldin eta, aitzitik, errentadunen baiezkoa behar bada zerga bakoitzeko, inoiz ez dituzte konbentzituko ezta gobernuari eusteko adina ordaintzeko ere; haien errenten gutxitzea oso handia izango litzateke kasu horretan, ezingo litzateke disimulatu **akzisen** edo aduanen adar baten itxura emanda, eta Estatuko beste klaseek ez lukete gastuaren parte bat beren gain hartuko, dagoeneko ezin gehiago zergapetuta baitaude. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

al 1 galdera ezaugarritzat adizkiaren ezkerrean ezar daitekeen hitza.

-Ekarriko **al** diguzue gosaria, mesedez? -esan zioan feldzaindariari. Josu Zabaleta

-Ez **al** du heriotza merezi Ximeik, Jaunaren gantzutuari bota zion madarikazioagatik? Elizen arteko biblia

Lehengaietan gertatzen den gauza bera gertatzen **al** da petrolioaren kasuan ere? Koro Navarro

-Ez **al** duzue material guztia sartu? -zuzendariak hirugarren dominikoa emoten du, bere ahots eztiaz. Koldo Izagirre

Noiz arte, Jauna? Betiko **al** zaude ezkutuan? Betiko **al** da zure haserrea su eta gar? Elizen arteko biblia

Eta lurraren gainean zolatu behar bada, lurra denean sendo **al** dagoen begiratuko da, eta ondoren, dena berdinduko da eta zabalduko da azpiko hartxintxar-geruza. Santiago Iruretagoiena

Gogoratzen **al** duzu, seme, beti egia esatea erakutsi nizula, seme batek egia zor diola amari. Felipe Juaristi

Sartuko **al** gaituk garagardotegian? -galdetu zidan benetako goxotasunetik aski urrun zegoen tonu batez. Alberto Ladron Arana

Ez **al** dakizu hilketa latza obratu zela Harrondon? Itxaro Borda

Barkatu, libre **al** dago? itaundu zenidan, zeinen tipo arraroa esaten duenaren begiak ipiniz, erdi barrez, erdi haserre. Lander Garro

- Baina ez **al** da oso iluna sotoa? Juan Garzia

Zer, ba **al** duzu karteroarentzat aterperik? Joseba Sarrionandia

2 ***nik al dakit*** auskalo.

Handik **nik al dakit** zenbat denborara, Hindenburg zeppelinaren hotsak esnatu ninduen. Anjel Lertxundi

Magnetismo, hipnosi, sugestio eta **nik al dakit** zer, deitu diote ahalmen horri. Josu Zabaleta

Ez genion ezer esan, ordea, obispoari, eta hizketan segitzen zuen hark ingurunearen ederraz, euskaldunen prestutasunaz eta **nik al dakit** zertaz. Inazio Mujika Iraola

Hik uste al duk, batzuetan, zoriak, edo patuak, edo **nik al dakit** zerk, hire alde-edo egiten duela? Fernando Morillo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 25 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ari al zara** (35); **ba al da** (112); **ba al dago** (172); **ba al dakik** (124); **ba al dakizu** (228); **ba al dakizue** (42); **ba al du** (103); **ba al dute** (33); **ba al duzu** (103); **baina ba al** (29); **baina ez al** (97); **behar al da** (37); **behar al du** (27); **behar al dugu** (37); **behar al duk** (25); **behar al duzu** (41); **egia al da** (90); **egin al du** (29); **egin al duzu** (26); **ez al da** (719); **ez al dago** (90); **ez al dakik** (40); **ez al dakizu** (82); **ez al dakizue** (38); **ez al didazu** (26); **ez al dira** (111); **ez al dizu** (36); **ez al du** (141); **ez al dugu** (55); **ez al duk** (132); **ez al dun** (37); **ez al dut** (34); **ez al dute** (61); **ez al duzu** (291); **ez al duzue** (88); **ez al haiz** (65); **ez al litzateke** (40); **ez al naiz** (25); **ez al nuen** (30); **ez al zaik** (26); **ez al zaizu** (72); **ez al zara** (108); **ez al zarete** (26); **ez al zen** (189); **ez al ziren** (38); **ez al zuen** (117); **ez al zuten** (29); **ezagutzen al** (163); **ezagutzen al duk** (47); **ezagutzen al duzu** (48); **ezagutzen al duzue** (30); **gogoratzen al zara** (26); **hau al da** (59); **hori al da** (77); **ikusi al duk** (27); **ikusi al duzu** (58); **ikusten al duzu** (70); **iruditzen al zaizu** (34); **izan al da** (63); **izan al duzu** (28); **izan al zen** (38); **izango al da** (47); **joango al gara** (29); **nahi al du** (34); **nahi al duk** (54); **nahi al duzu** (177); **nahi al duzue** (33); **nik al dakit** (45); **posible al da** (31); **uste al duk** (25); **uste al duzu** (160); **ziur al zaude** (30); **zu al zara** (41)

---

ala 1 *junt* galderetan eta zehar galderetan *edo*-ren ordez erabil daitekeen juntagailua.

Nongo "zalantzak" ordea? Elizgizonen zalantzak, herri-gizonenak **ala** gizaki ororenak? Piarres Xarriton

Suak **ala** urak **ala** aireak? Xabier Amuriza

%30 materiaz osatua ote da (gehiena iluna), **ala** %29, **ala** %32? Galdera hauek azkenean zehazki erantzutea garrantzitsua da. Berria - Gaiak

-Zer da hori, G **ala** E? Janbattitt Dirassar

-Gehiago irakurtzen duzu frantsesez **ala** eskuaraz? Menane Oxandabaratz

Eta 16 goizean zorionak **ala** doluminak eman behar nizkion galdetu nionean, bata zein bestea onartuko zituela erantzun zidan. Josu Zabaleta

Lisboako futbolaren zaleak talde bitan banatzen dira, alegia, **ala** Sportingen alde, **ala** Benficaren alde. Edorta Jimenez

Eta ezin jakin Garbizu mintzo den, **ala** Seneka, **ala** Quevedo, **ala** Axular, **ala** guztiak eta bat bera. Imanol Zurutuza

Gizona ez dela leku berean egoiten ahal, beti behar duela aurrera joan, zangoz **ala** kaskoz **ala** bihotzez, eta ahalaz hiru molde horiek bateratuz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gazte **ala** zahar, ezin erran. Aingeru Epaltza

Ala etzi nahiago zenuke? Janbattitt Dirassar

Ala estatujabe eta munduko Nazio Batuen Elkarteko kide izanen diren haiek ere, **ala** estatugabe, **ala** beregain, **ala** besteen menpe, **ala** departamendu, **ala** eskualde, **ala** deus ez? Piarres Xarriton

Beti zegoen orduantxe bertan egin beharreko zerbait, Ramsay andreak arrazoi jakinen batengatik berehala egitea erabakitako zerbait, nahiz denak berriketan aritu zutituta, orain bezala, erabaki ezinik erretzeko gelara joan, **ala** saloira, **ala** teilatupera. Anton Garikano

-Ezkerrekoa **ala** eskuinekoa izan, ez da munta, nire ustez. Aingeru Epaltza

Ezker tradizioak eta nazionalismoak zerikusirik ez dutela esan zuen eta, horren ondorioz, Maragallen jokabidea erratikoa izan dela, ez dagoelarik argi **ala** sozialista **ala** nazionalista den. Berria - Euskal Herria

Izan dadien prentsa, **ala** irratia, **ala** telebixta, denetan aipatzen zuten Jakes Haundiaren adina: 73 urte bete ditu joan den astean. Herria

Apezik eta elizkizunik gabe, nahi **ala** ez, jende ainitzen fedea ahuldu zen, kartsuenenek indar hartu baldin bazuten ere. Xipri Arbelbide

Pauloren gutunetan gertatzen den bezala) ez da erraza hizki larriz **ala** xehez idatzi behar den erabakitzea, hau da, giza espirituaz **ala** Espiritu Santuaz ari den bereiztea. Askoren artean

-Ez dakit gauzaño bat behar dizudan erran **ala** ez. Janbattitt Dirassar

Ala bai? Edorta Jimenez

Lehorrean **ala** ontzietan? Edorta Jimenez

2 (errepikaturik) nahiz.

Ala dadin aberats **ala** pobrea. Piarres Xarriton

Hots, **ala** Frantziak, **ala** Amerikar Estadu Batuek armamendu politika hori segitzen dute. Herria

Baigorriarrek ereman dute hau saratarren kontra, oraino etsitzekotan ez den Çuiburu batekin, hunek bakarrenak baititu lehen ere irabaziak **ala** Pasaka **ala** luzean. Herria

Jarrera bataren **ala** bestearen defentsak berekin zekarren jatorrizko bekatuaren hedapenaren auzi korapilatsuari soluzioa aurkitzea. Imanol Unzurrunzaga

Hazparneko bestetan ukan du pilotak berea aurten ere, **ala** plaza laxoan **ala** trinketean. Herria

Soldaduei ere eta beste jende arruntei debekatzen diegu, **ala** oinez, **ala** zaldiz, zezenekilako edo beste basabereekilako ikusgarrietan parte hartzea. Piarres Xarriton

Alabainan, Ameriketa ezagutu ondoren, itzuli eta, zoin baino hobeki mintzatzen zituen **ala** kaskoina, **ala** frantsesa **ala** espanola. Herria

Hala zelarik, denak lotzen ziren finean beren egitekoari baina lan hura, **ala** egunekoa **ala** gauekoa, ez zen akigarria. Marzel Etxehandi

Edozein elizaren ala herriren, Inperio, Erreinu edo beste karguren jabe direnei, zernahi izen izanik ere, **ala** haien elkartasunei **ala** erkidegoei, betiko gure lege oinarrizkoaren

bitartez debekatzen eta eragozten diegu, erran orduko, eskumiku eta anatema zigorrez gaztigatzeko arriskupean ez dezaten eman nehongo beren probintzietan, ez hirietan, ez lurraldetan, ez gazteluetan, ez beste lekuetan zezenen edo basabereen lasterketak bezalako ikusgarririk egiteko baimenik. Piarres Xarriton

Ondorioz, **ala** iragan denborari **ala** presentekoari **ala** gerokoari dagozkien gauzak kontingente bezala irudikatuko ditugu. Piarres Xarriton

Zinezko entziklopedia zelako fama zuen **ala** teologia, **ala** filosofia, **ala** literatura, **ala** musika, **ala** deretxo zibil eta Elizako deretxoan. Xipri Arbelbide

Azienda mutuek ere, baita basapiztiek ere, hots ezberdinak eta askotarikoak jaulki ohi dituzte, beldurrak **ala** minak **ala** pozak jotzen dituenean. Xabier Amuriza

Ekarpen hori konbentzionala da, kodetua, eta oso desberdina ere izan daiteke, argazkiak zer atzeman duen: iraupen bat, luzeagoa **ala** laburragoa, **ala** instantea deitzen dena [...] baina horren ezagutzak hor izan behar du beti. Josu Zabaleta

Baditugu bestalde asko lurralde Europan berean edo mundu zabalean, ez baitakite oraino zer zorte izanen duten bihar! **Ala** estatujabe eta munduko Nazio Batuen Elkarteko kide izanen diren haiek ere, **ala** estatugabe, **ala** beregain, **ala** besteen menpe, **ala** departamendu, **ala** eskualde, **ala** deus ez? Piarres Xarriton

Uda **ala** negu, egunero, gauza bera egiten zuen. Daniel Landart

3 galdera baten azken osagai erretoriko gisa, hautakizunaren bigarren partea ezabatzen denean.

'Ez nauzu ezagutzen **ala** ?' galdetu diot. Joseba Sarrionandia

Gaizkitzen ari haiz, **ala** ? -irratilariak. Aingeru Epaltza

Zertan ari zarete hor? Erregearen aurka altxatu nahi duzue **ala** ? Elizen arteko biblia

Pitzatu egin zaik **ala** ? Antton Olano

-Uste duzu -zu gizon bat baitzira- ainitz emazte maitatzen ahal direla bizian, **ala** ? Menane Oxandabaratz

-Hernando, lotan, **ala** ? Edorta Jimenez

Gaiztoari laguntzen eta Jaunaren etsaia adiskidetzat hartzen, **ala** ? Eta hark erantzun: [...]. Elizen arteko biblia

Zergatik nahi duzue berriro entzun? Zuek ere haren ikasle izan nahi duzue **ala** ? Elizen arteko biblia

Zuhaitzen erabilgarritasuna fruituetan bakarrik eskaintzen zaio gizakiari, **ala** ? Imanol Unzurrunzaga

-Kutunetan sinesten duzu, **ala** ? -Bai eta ez. Edorta Jimenez

-Mediku zara, **ala** , Martin? Edorta Jimenez

· **Ala** Inkisizioa ez zen, bada, halakoen bila ibili izaten, sorgin, sorgino, azti eta halakoen atzetik ibiltzen zen sukar berean? Edorta Jimenez

4 zina, arnegua, desira edo harridura adierazteko erabiltzen den hitza.

- **Ala** zazpi infernuetako deabruak! -egin zuen aldarri. Edorta Jimenez

Horregatik - **ala** ni bizi! -Sodomarena bera gertatuko zaio Moabi, eta Gomorrarena amondarrei: sasiarte eta gatzaga eta hondamendi bihurtuko dira. Elizen arteko biblia

Eliseok erantzun: - **Ala** Jauna, **ala** zu! Ez zaitut bakarrik utziko. Eta biak joan ziren. Elizen arteko biblia

Itaik, ordea, ihardetsi zion erregeari: - **Ala** Jauna! **Ala** erregea, ene jauna! Elizen arteko biblia

Ez nik horrelakorik, **ala** Jainkoa eta **ala** zu! Jose Antonio Mujika

Ala Jainkoa, zirtzil horrek ere bazian ehiza bukaerako turutari itxarotea! ik alajainkoa. Josu Zabaleta

5 ***ala brintxua*** *interj*

-Zorroa ez zidatek Erromatik betetzen, ala **brintxua** ! Aingeru Epaltza

6 ***ala fede*** *interj*

Ala **fede,** jauna, nik ezetz. Ez edonolako tirita, ala **fede** . Juan Garzia

Ezta nik ere, jauna, ala **fede** . Juan Garzia

7 ***ala izan***

Dena den, izan Jondoni Bixintxo bat **ala izan** bi, Bixintxo-besten fama ez doa ttipituz, ez neguan eta ez udan, izan Ziburun, Hendaian, Urruñan ala beste zenbait herritan... Herria

Izan daiteke, ordea, zergatik ez, susmatzen dugulako horixe dela benetan beharrezkoa, mundu honi zentzuren bat bilatzea handik edo hemendik, izan olioa mihise gainean **ala izan** hitzak paper gainean. Berria - Kultura

8 ***alde batera ala bestera***

Alegia, atsekabeturik ala pozik nagoen, bertute bataren ala bestearen bila nabilen, neure burua **alde batera ala bestera** prestatu nahi dudan, kontenplatzen ari naizen gauzaz tristatu ala gozatu nahi dudan, azkenik gauza berezi batzuetan irrikarik bizienaz opa dudana eskatuz. Patxi Altuna

Zeldan baino urrats gehiago egiten ahal ditut **alde batera ala bestera** ... Aupa! Goazen aitzina! Bat bi hiru lau... bost sei zazpi... Zazpi zazpi zazpi... hirukiaren hiru aldeetan. Filipe Bidart

9 ***arrautza ala oiloa***

Aristoteles handiaren obra arretaz irakurri ez duenak baino ez dezake galdetu **arrautza ala oiloa** , biotan zein izan ote zen aurrena. Joxerra Garzia

10 ***aurpegia ala gurutzea***

Aurpegia ala gurutzea ? Lopez de Arana

11 ***biak ala biak***

Biak ala biak arnasestuka hasi ginen. Aitor Arana

Biak ala biak oso talde indartsuak dira etxean, puntu gutxi galtzen dituztenak. Berria - Kirola

Biak ala biak ere, hala Ibrahim Farai nola Abas, hilik desio zituen. Patxi Zubizarreta

-Bai -esan zuen-, John Loomis eta Matt, **biak ala biak** uztarri berean lotzeko modukoak ziren. Mirentxu Larrañaga

Bi alaba izan zituzten, Marina eta Ada, bi alaba, **biak ala biak** erotzeraino maite zituztenak. Felipe Juaristi

Bi gizon horietatik bata ingelesa zen, bestea frantsesa, **biak ala biak** tantai eta argalak. Karlos Zabala

Esan nahi baita **biak ala biak** pozik bizi zirela, eta konforme zeudela zutenarekin. Joan Mari Irigoien

Onartzen zuten beren autismoa, unibertsitatean **biak ala biak** ohartu baitziren bestea ere autista zela. Xabier Olarra

Hango argira beste bi gizon ikusi zituen Joanesek, esku handiak sutan berotzen **biak ala biak** . Felipe Juaristi

Atzo, polizia etxetik pasatu ostean, aske utzi zituzten **biak ala biak** . Berria - Ekonomia

12 ***ezker ala eskuin***

Ezker ala eskuin , askok egiten duten oharpena: alderdieri denetz baitezpada neren hautagaiaren hola hautatzea, hori alderdi baten egitekoa denetz… Hortaz ere bada eztabada frango ez idurika. Herria

Erreka bitan banatzen bada ere, urak erabakitzen duela, eta ez guk, **ezker ala eskuin** , nondik eramango gaituen. Imanol Zurutuza

Mariaren esku batek - **ezker ala eskuin** ezin zehaztu mezulari gazteak- krabelin zuria bota zion Kopenhageko printzeari, baina loreak zalgurdiko kristala jo, eta lurrean geratu zen maspildurik. Felipe Juaristi

13 ***gerta ala gerta***

ala biak ala biak --, **gerta ala gerta** ... Iñaki Arranz

Gerta ala gerta ! Koldo Izagirre

14 ***goiz ala berandu*** *(**4** agerraldi, **3** liburu eta artikulu **1**ean)*

Goiz ala berandu Varela kapitainaren hiltzaileak hutsegite bat egingo du. Jon Muñoz

Eta, egia esan, **goiz ala berandu** beti jasotzen zuen. Xabier Montoia

15 ***goiz ala berant*** *(**13** agerraldi, **5** liburu eta **3** artikulutan)* goiz ala berandu.

-Goiz ala berant, denek ikasten diagu. Aingeru Epaltza

Eta badakit, **goiz ala berant** aitortu beharko diodala. Daniel Landart

16 *hil ala bizi*

Noizbait, Manex Laxaguek, ene aspaldiko lagun eta herritarrak, Eskualdun gudarietan 1792an sartu zena eta geroztik eni beti jarraiki zenak, atzeman ninduen, ez baitzuen bakerik **hil ala bizi** ni atzeman arte. Michel Oronoz

Peevesen azpitik makurtuta, **hil ala bizi** hasi ziren lasterka, korridorearen bukaeran ate baten kontra jo arte... baina hura giltzaz itxita zegoen. Iñaki Mendiguren

Ekin diote **hil ala bizi**, goitik behera harrika, harmaz, azkonez, lantzez eta asma ahala guzi tresnaz; eta atzenerako han gelditu dira napar guziak errausturik. Patziku Perurena

Izan ere, amaren egoerak txarrera egin zuen, eta hala egon zen egun batzuetan, **hil ala bizi**, apendizitisak peritonitisa eragin ziolako. Joan Mari Irigoien

Hil ala bizi, independentzia du bere xede bakarra Barghontik palestinarrentzat. Herria

17 *hil ala biziko*

Perezek atzo gaineratu zuenez, talde ondo dago eta partida **hil ala bizikoa** balitz bezala zelairatuko direla. Berria - Kirola

Izan ere, ahanztea **hil ala bizikoa** daiteke munduko alderdi honetan. Xabier Montoia

Irautea, **hil ala biziko** kontua. Ana Urkiza

Castro, "Che", Cienfuegos... Baina gu mendietan ginen, eta guretzat ez zen batere erromantikoa izan, **hil ala bizikoa** izan zen! Jon Muñoz

Leirek, ordea, behin baino gehiagotan ikusi zuen hura egiten -gehienbat amak berea egitea lortzea **hil ala biziko** kontutzat jotzen zuenean, hau da, ia beti -, eta ez zen hargatik asko kezkatu. Aitor Arana

Basurtokoren seme nagusiarekin banuen konpondu beharreko auzia, **hil ala bizikoa**, **hil ala bizikoa** zenez. Edorta Jimenez

Haizeek eta euriek hazi indar galtze sentimenduaren ezabatzeko hartzekoa nuen arriskuaren saria zen, **hil ala bizikoa**. Itxaro Borda

18 *huts ala kausi*

Gomita zerrenda bat biziki luzea lerrokatu eta, **huts ala kausi** gutunak igorri zituzten eta hona non Marc Philippe Daubresse egoitzetarako estatu idazkariak onartu duen jitea. Herria

19 ***kurutx ala pil*** *(ETCn **18** agerraldi; orobat **kutx ala pil** ETCn **33** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kutx ala pil** agertzen da) adlag* txanpon edo kideko bat airean bota eta zein aldetik eroriko den lurrera asmatzean datzan jokoan.

Kurutx ala pil. Patxi Iturritegi

Kutx ala pil! Ramuntxo Etxeberri

Film bat ikusi behar eta, **kutx** ala pil, "Le silence des agneaux" hautatu nuen. Daniel Landart

20 ***kutx ala pil*** *(ETCn **33** agerraldi; orobat **kurutx ala pil** ETCn **18** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kutx ala pil** agertzen da) adlag* txanpon edo kideko bat airean bota eta zein aldetik eroriko den lurrera asmatzean datzan jokoan.

Kutx ala pil egin bezain pronto ikerlari lanetan jarria zen errioxarra. Berria - Kirola

Kutx ala pil! Ramuntxo Etxeberri

Film bat ikusi behar eta, **kutx ala pil**, "Le silence des agneaux" hautatu nuen. Daniel Landart

21 ***nahi ala ez*** nahitaez.

Joan beharko dute, **nahi ala ez**, Iruñera, hango militarren aitzinera, haien manueri jarraikitzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eta **nahi ala ez** hola gertatzen ari da. Herria

Bai, bizia arrunt desberdina denentzat eta, **nahi ala ez**, heldu zen bezala hartu behar... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Laborantza Ganbara, **nahi ala ez**, da frantses erakunde bat. Herria

Orain adituko zidan, **nahi ala ez**. Aingeru Epaltza

22 ***ogi ala ardo*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Adibidez, txanpon bat jaurtitzean, aukera bera dago **ogi ala ardo** ateratzeko, eta dado bat botatzean zenbaki guztiek dute irteteko aukera bera, hots, seitik bat, 1/6. ETC-zientzia, zuzenbidea

23 ***txotx ala motx egin*** bi txotx, luzea eta motza, erabiliz, zotz egin.

Eraso egin edo atzera egin zalantzan nagoenean, ez naiz zalantzan minutu bat ere egoten... **txotx ala motx** egiten dut. Xabier Olarra

24 ***uda ala negu*** *(**12** agerraldi, **6** liburu eta **5** artikulutan; orobat **uda nahiz negu, 2** agerraldi, **2** liburutan; **uda zein negu 3** agerraldi, **3** liburutan; edo **uda edo negu 2** agerraldi, **2** liburutan) adlag*

Hirira jaisten zenean, **uda ala negu** izan, burutik oinetaraino oihal lodi eta koloredun batez estaltzen zen, mairuen gisara. Felipe Juaristi

Ni, aldiz, egunero, **uda ala negu**, iguzki ala euri, hotz ala bero, goizean eta arratsaldean, baietz bai!, promenaderat ateratzen nintzela. Filipe Bidart

Sukaldeko leihoa zabalik izaten zuen beti, **uda ala negu**, egun ala gau. Jon Maia

Errepidean, **uda nahiz negu**, beti izaten zen Rosatik Gruarora zebilen gurdi eta bizikleta joan-etorria. Josu Zabaleta

Karrikaz karrika **uda zein negu**, umeak atzetik zituela. Felipe Juaristi

Berdin diola, esan dit, **uda edo negu**. Hasier Etxeberria

25 ***zotz ala motz egin*** bi zotz, luzea eta motza, erabiliz, zotz egin.

Eta ez zegoen **zotz ala motz** egiterik. Edorta Jimenez

---

alaba 1 *iz* emakumezkoa bere gurasoekiko. ik **seme**.

Amari ahaztu egiten zaio garai batean bera ere **alaba** eta ama batera izan zela. Arantxa Iturbe

Zazpi seme eta hiru **alaba** zituen. Elizen arteko biblia

Taibelek seme bat eta bi **alaba** eman zizkion senarrari, baina txikitan hil ziren hirurak. Koro Navarro

Bi **alaba** izan zituzten, Marina eta Ada, bi **alaba**, biak ala biak erotzeraino maite zituztenak. Felipe Juaristi

Gure ama izan zen familia berri hartako lehena, eta ondotik etorriko ziren beste zortzi **alaba**; bederatzi ahizpa guztira, eta mutilik batere ez. Xabier Mendiguren Elizegi

Tolentinoko Mateok Frantziska izeneko **alaba** zuen. Askoren artean

-**Alaba** dudalako, horrexegatik. Oskar Arana

Ama, malura handitan duzu **alaba**! Jon Muñoz

Areago omen zirudien beraren **alaba**, emaztea baino. Txillardegi

Antzeman nien, noski, nola begiratzen zioten neskari -**alaba** nuelakoan zeuden haiek, noski- burdin zurubia mailaz maila igotzen ari zen bitartean. Joxe Austin Arrieta

-So egion mugarik gabeko lautada eder horri, **alaba**. Anjel Lertxundi

Bikote gaztea Egutxiren etxera etortzen zenean, **alaba** amari laguntzera joaten zen sukaldera. Ibon Uribarri

Handik gutxira **alaba** Sergerekin ezkondu eta Manex jaio zen. Eider Rodriguez

Egia esatera, amaren kezka ez zen **alaba** senarrik gabe geratzea. Patxi Zubizarreta

Egia da gure asmo guztiak deuseztea bururatu zaiola, **alaba** komentura berriz sarrarazteko xedea harturik. Jon Muñoz

Aita batek, erromatarren artean, behartu zezakeen **alaba** senarra zapuztera, nahiz eta ezkontza berak onetsia izan. Iñaki Iñurrieta

Klara, familia nobleko **alaba** zen, Asisko gazte distiratsuenetakoa, etorkizun oparokoa. Askoren artean

Familia nobleko **alaba** izanik, kultura-maila ona izan zuen. Askoren artean

Hara: baditut **alaba** bi, oraindik gizonik ezagutu ez dutenak. Jose Antonio Mujika

Hiru seme izan zituen Saulek: Jonatan, Ixbi eta Malki-Xua; bai eta bi **alaba** ere Merab zaharrena eta Mikal gazteena. Elizen arteko biblia

Emadazu **alaba** emaztetzat; zure suhi izango naiz eta dagozkizun bezalako eskuerakutsiak egingo dizkizuet bai zuri, bai alabari. Elizen arteko biblia

Alaba haietako baten **alaba** da nire amona. Xabier Mendiguren Elizegi

Zorobabelen semeak: Mexulam eta Hananias eta **alaba** Xelomit. Elizen arteko biblia

Alaba Katalina haiekin zen. Aingeru Epaltza

2 (-en atzizkiaren eskuinean)

Betsabe da, Eliamen **alaba**, Urias hitiarraren emaztea. Jose Antonio Mujika

Amari ahaztu egiten zaio garai batean bera ere **alaba** eta ama batera izan zela. Arantxa Iturbe

Jaunaren aurrean, zure ardurapean uzten dut gure **alaba**: ez ezazu nahigabetu zeure bizitza osoan. Elizen arteko biblia

Ez genuen sekula usteko gure **alaba** sugegorrien habia batera bidaltzen ari ginela. Oskar Arana

Korridorera atera zirenean Amianoren **alaba** besarkatu zuen, gero berari ere harrigarria gertatu zitzaion berotasunaz. Ramon Saizarbitoria

Dudarik gabe, behar dut haren **alaba** seduzitu: baina ez da aski, behar dut galdu. Jon Muñoz

-Uste horretakoa naiz, tabernariaren **alaba**, eskuak gari zurizkoak dituzun neska! -erantzun zuen Joanesek, irribarretsu, neskaren eskuak bere eskuetan hartuz-. Felipe Juaristi

Adio, adiskide agurgarria; maita nazazu zure **alaba** banintz bezala, har nazazu **alabatzat**. Jon Muñoz

Berrogeita bat urtez izan zen errege Jerusalemen. Amak Maaka zuen izena eta Absalomen **alaba** zen. Elizen arteko biblia

Baina ez al da halakoren **alaba**? Koldo Izagirre

Argi dago zorigaiztoko grina hori dela nire **alaba** oinazetan daukana. Jon Muñoz

Bere **alaba** ote zegoen patriotek su emandako beltzen eskolako neska zalapartarien artean. Anton Garikano

Volanges andreak bere **alaba** esposatzen du: sekretua da oraino; baina atzo jakinarazi zidan. Jon Muñoz

Absalomen **alaba** Maaka izan zuen Roboamek maiteena bere emazte eta ohaide guztien artean. Elizen arteko biblia

Itsasoan urrun, Ogigia uhartea dago, non bizi baita Atlanteren **alaba**, Kalipso txirikorda ederduna, jainkosa ikaragarria. Juan Kruz Igerabide

Andres konbentzituta geratu zen amak ongi zekiela nolakoak ziren egiaz Julioren eta bere **alaba** Niniren arteko harremanak. Josu Zabaleta

Hori iloba dut, nire senarraren anaiaren **alaba**. Josu Zabaleta

Helkiasen **alaba** Susanarekin ezkondua zegoen. Elizen arteko biblia

Abinadaben semea, Salomonen **alaba** Tafat-ekin ezkondua. Elizen arteko biblia

Zure seme Hasanek haurdun utzi zuen nire **alaba**. Patxi Zubizarreta

Ongi da, eginen dut zurekin hitzarmena; baina gauza bakarra eskatzen dizut: ez azaldu niregana Saulen **alaba** Mikal ekarri gabe. Elizen arteko biblia

Egiptoko errege faraoiaren senitarteko egin zen Salomon, haren **alaba** emaztetzat hartuz. Elizen arteko biblia

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Alaba bakarra naiz ni; / aitak ez du beste semerik / oinordeko izango duenik. Jose Antonio Mujika

Musu bat zure **alaba** atseginari. Jon Muñoz

"Ez horrenbeste erre, ama!", hots egin zuen Lizek, **alaba** nagusiak, leiho batean azalduz. Bernardo Atxaga

Buhamearen **alaba** gehienak etxola doiaren aterpean dindilizka zebilen sua indartu zuen. Itxaro Borda

Mediku bati gerta dakiokeen miseriarik handiena: **alaba** txikia gaixotu eta erremediorik aurkitu ezina. Arantxa Iturbe

Izan ere, bentan epaile bat azalduko da bere **alaba** gaztearekin. Patxi Ezkiaga

Alaba zaharra izateak ematen zion aginpideaz baliaturik, kalera ematen zuen gelaz jabetu zen; gelarik handiena eta ederrena zen. Karlos Zabala

Gizon ausarta izaten bazara eta Jaunaren guduetan bizkor borrokatzen, Merab ene **alaba** zaharrena emanen dizut emazte. Elizen arteko biblia

Alaba etxekoia eta lasaia izatea gustatuko litzaidake, ez oraingoak bezalakoa. Lopez de Arana

Rachelen egoitza garbitzen zuen orduetan, Janinak beti ondotik zeukan txokolate ekoizleen **alaba** bihurria. Itxaro Borda

Juana Bixentak, ordea, ondo hezitako **alaba** esaneko baten logika itxia erakutsi zion indianoari. Anjel Lertxundi

Lore haiek hiru **alaba** ezkonduen oroitzapenak ekarri zizkioten. Ibon Uribarri

Alaba ezkonduarekin Glasgown bizi zen eta urtean behin egiten zuen Dublina bisita. Irene Aldasoro

Ni nor nintzen igarri balio, markes baten **alaba** borta zela sinistaraziko zidan segur aski. Matías Múgica

Alaba zapuztuak aita amultsuari ordaina emateko garaia izan zen. Gotzon Garate

Zaldun ibiltari batek etxe batean ostatu hartzen bazuen, etxeko **alaba** ezkongabea izaten zuen zerbitzari; areago, aitoren **alaba** izanez gero. Juan Kruz Igerabide

Zoaz, **alaba** bedeinkatua, eta jakizu laster kontsolazio-bide izango duzula senarra. Askoren artean

Velasco hori ibilia omen da bere kalesan, **alaba** baltsamatua ondoan duela, Madrileko parkeetan paseatzen. Anjel Lertxundi

Agur, **alaba** bihotzekoa, zuri eta zure alabei, Jainko handiaren aintzazko tronura arte, eta egin otoitz gure alde. Askoren artean

Parisen, hiri katolikoa inon katolikorik bada, duela bortz egun, miliziakoek zati-zati eginen zuten, beren alabardekin, Kalbinoren **alaba** blasfemaria. Aingeru Epaltza

Noiz arte ibili behar duzu inguru-minguru, **alaba** bide-galdu horrek? Elizen arteko biblia

4 (deiki gisa)

Alaba, haurdun zaude eta semea izango duzu. Izan bihotz, ene **alaba**, niri esker erabat sendatua baitzaude. Askoren artean

Zer lotsa, **alaba**! Zer lotsa! Josu Zabaleta

Amaginarrebaren etxera heldu zenean, honek galdegin zion: -Zer berri, **alaba**? Elizen arteko biblia

-Ai, ene **alaba**! Lur joa utzi nauzu. Elizen arteko biblia

Entzun, **alaba**! Zaude erne eta adi! Ahaztu zeure herria eta aitaren etxea. Elizen arteko biblia

-Izan adore, **alaba**! Jose Antonio Mujika

5 irud/hed

Hala, Santa Klarak, obedientziaren **alaba** egiazkoak, gurutzearen seinalea eginez bedeinkatu zituen ogi haiek debozio handiz. Askoren artean

Denboraren **alaba**; esapide bitxia benetan, berez denbora haur-jalea izaki. Juan Kruz Igerabide

6 (hitz elkartuetan)

Ez didazu neure **alaba**-bilobak besarkatzen utzi; oso ergel jokatu duzu. Elizen arteko biblia

Baina amari **alaba**-maitasuna sentitzea, horrelakorik ez zait ateratzen. Smith kapitaina etiketaren kontuaz desenkusatu zen, hura errege-**alaba** zela eta. Josu Zabaleta

7 ***adopziozko alaba*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

2020ko urrian Durangoko Udalak Gurutzi Arregi etnografoa **adopziozko alaba** izendatzeko prozedura hasi zuen, Durangoko hamar bat lagunek egindako eskariari erantzunez. ETC-entziklopedia

Sasoi batean guztion ahotan ibili zen bere bizitza pribatua zela eta; izan ere, bere **adopziozko alabarekin** harremanak zeuzkan eta honek dibortzioa eta bestelako arazoak ekarri zizkion. ETC-entziklopedia

8 ***adopziozko seme-alaba*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) pl*

%96 pozik daude beren **adopziozko seme-alaben** gaur eguneko izateko moduaz; %90en iritziz, umerik jaso ez balute baino zoriontsuago bizi dira. ETC-zientzia,

zuzenbidea

Adopziozko seme-alaben abizenen kasuan, Kode Zibilak azken eraldaketaren ondoren xedatutakoa aplikatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erregistro fiskalen arabera pertsona baten ondareak behera egin badu eta sinkronikoki, beranduago, baina inola ere ez bi urte pasa ondoren, ezkontide edo bikotekide egonkorraren, ondorengoen, **adopziozko seme-alaben** edo horietako edozeinen ezkontideen edo bikotekide egonkorren ondareak, berriz, gora. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *aita-alaba* *pl*

Auzoko **aita-alaba** batzuek poliziaren jipoia jaso zuten, eta, atzo bertan, salaketa jarri zuten epailearen aurrean. Berria - Euskal Herria

Bien aurpegieren antzak ez zidan okerrerako biderik eman: **aita-alabak** nituen inondik ere. Anjel Lertxundi

Aita-alaba ez al ziren bada, eguzkiarekin batera kalesa barregarrian ibilian-ibilian hasiko? Anjel Lertxundi

Ilundu zelarik, **aita alabak** jende multzoaren marearen mugimenduan hartuak ziren oraindik. Ramuntxo Etxeberri

Aita-alabaren arteko elkarrizketa baten lekuko mutua nintzen, eta ziur nengoen xehetasun batzuek ihes egin zidatela. Javi Cillero

New Yorkera itzuli nintzenean, deitzen saiatu nintzen, baina telefono aurkitegian ez ziren ageri ez Boris Merkin ez Esther Merkin; beste norbaiten etxean egongo ziren **aita-alabak** maizter. Koro Navarro

Orduan, filistearrek joan eta erre egin zituzten **aita-alabak**. Elizen arteko biblia

Eskerrak emanda alde egin dute **aita-alabatzat** hartu dituzten biek. Urtzi Urrutikoeetxea

Aita-alabak akaso? Xabier Mendiguren Elizegi

Huraxe zen gure isileko lotura, azaldua izateko hitzen beharrik ez duen **aita-alaba** arteko kidetasuna. Joxan Elosegi

10 *aitonen alaba* *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **aitoren alaba** agertzen da)* ik **aitoren alaba**.

Begitarteak "Japonia zaharreko krabelina", behialako **aitonen alabaren** ikurra, zekarren gogora: silueta handi haren gainean, mundua mendean hartzea zen Fubukiren patua. Joxan Elosegi

11 *aitoren alaba*

Haurra neska eta **aitoren alaba** delarik, errodela errazkiago ibil dezan burdin gorritu baten bidez ezkerreko bularra mozten diote. Aurelia Arkotxa

Horrelakoetan, ugazabandre gazte bat irudikatu ohi zuen, lerdena, azalmintz zurikoa eta bizia, merkatari-familia batekoa beharbada, baina ikasia eta **aitoren alaba** baten antzera hezia musika ere ulertzeko? Jose Morales

Zaldun ibiltari batek etxe batean ostatu hartzen bazuen, etxeko alaba ezkongabea izaten zuen zerbitzari; areago, **aitoren alaba** izanez gero. Juan Kruz Igerabide

Aitoren alaba bat izan ez balitz, kristau-lurretik kanpo ehortziko zitean. Juan Garzia

12 *alaba adoptatu*

Orain bi liburu berri kaleratu dituzte: Ez naiz ilehoria eta zer?, eta, **Alaba adoptatua** naiz, eta Zer? Berria - Kultura

13 *alaba bakar*

Alter Vishkower hiriko gizon aberatsenaren **alaba bakarrarekin** hitz emanda nengoen. Koro Navarro

Langonen zen omen bizi Hipokrataren **alaba bakarra**, Alosia zeritzana, Diana jainkosak herensugetu izan zuena. Aurelia Arkotxa

Alaba bakarra eta besterik ez, arras baitzuen hark bihotzetik maite. Juan Garzia

Alaba bakarra nau aitak, ez du oinordeko izango litzatekeen semerik, ez du senide hurrekorik, ez ahaiderik ni emaztetzat hartzeko modukorik. Elizen arteko biblia

Sarszeg hiri probintzianoko tren-geltokitik Vajkay senar-emazte zaharren **alaba bakarra**, Hegatxabal deitua, opor txiki batzuk pasatzera abiatzen da lehengusu batzuen etxaldera. Berria - Kultura

Jakin ezazu, ordea, **alaba bakarra** izango zarela, emakumetxo, bakarra izango zarenez. Mirentxu Larrañaga

Alaba bakarra zen eta gurasoek beti maitasun handia erakutsi zioten. Gotzon Garate

Lege Vokoniarrak ez zuen uzten emakume bat oinordeko izendatzen, ezta **alaba bakarra** izanda ere. Iñaki Iñurrieta

Ixtorioa hau da: Mizel Ttunttun herriko ttunttunero ohiak, **alaba bakarra** ezkontzen du Auxtin dohainik gabeko margolari bati. Herria

14 *alaba besoetako* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Haren abokatuek atzerrira joateko baimena eskatu dute, tratamendua Alemanian jaso dezan.>>Mendebaldeko hainbat gobernu eta erakundek **alaba besoetakoa** dute Timoxenko. ETC-prentsa

Mendebaldearen **alaba besoetakoa** ere bada, eta oposizioko Batkivtxina alderdiaren eskari nagusietako bat izan da hura aske uztea. ETC-prentsa

15 *alaba ez-legitimo* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Elkanok erdi-arreba bat ere izan zuela dirudi, Maria, Domingo bere aitaren **alaba ez legitimoa** izan zitekeena. ETC-entziklopedia

Berthe Leduc eta André Debaralleren **alaba ez-legitimoa** izan zen. ETC-entziklopedia

Era berean, norberaren semea edo alaba eta seme edo **alaba ez legitimoa** eta tankerako hitzak saihesteko esaten da. ETC-prentsa

16 *alaba gehien*

Nako eta haren **alaba gehienek** mihimenen puntarik lodienak erre zituzten. Itxaro Borda

Ama, Jeanne Ibarrart, Migelen **alaba gehiena**. Patziku Perurena

Bena gero beste andere batekin ezkontü beharko dü Antsok, politikaz: hura Munia da, Gaztelako (Castillako) jaunaren **alaba gehiena**. Herria

Aldiz, joandakoen emazte, seme eta **alaba gehienak** etxeetatik apenas atera ziren denbora batean. Jon Maia

17 *alaba kutun* *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

Bere **alaba kutunarekin** haserretu zenez gero, amak testamentua aldatzea erabaki zuen azken unean, eta, ondo ulertzen ez dudan arrazoiren batengatik, ni izendatu ninduen oinordeko bakarra. ETC-literatura, saiakera

Barru-barruan, ez du gogo handirik bere Maniatxoa, **alaba kutunena**, mundu zabalera abentura bila joan dadin. ETC-literatura, saiakera

Juana amaordearekin ez zen inoiz ondo konpondu, eta aita hiltzailea zuela eta Sacamantecas izan zela jakin zenetik gutxiago, Juanak haren **alaba kutun** moduan ikusten baitzuen, hots, etsaiaren lagun moduan. ETC-literatura, saiakera

Rafaelito Elviritarekin esposatu zen, alegia, hiru BMW zituen aitatxo aberats okitu baten **alaba kutunarekin**. ETC-literatura, saiakera

Halako batetik ez baitzen erraz libratuko, **alaba kutuna** izanda ere. ETC-literatura, saiakera

Ez baitut adorerik haren aurrean jarrita esateko dagoeneko deus ere ez dela izango lehen bezala, bere **alaba kutuna** Parisek akabatu duela, krudelkeria handiz akabatu ere. ETC-literatura, saiakera

Batasunaren mozioan, Olaia Kastresana herriko **alaba kutun** izendatzea proposatzen zen, ikurrina masta erdian jartzea, eta gorpua herriratzeak eragingo dituen gastuak Udalak bere gain hartzea. ETC-prentsa

Maider Unda herriko **alaba kutun** izendatuko dute eta ekitaldi hori aprobetxatuko dute Sastiña ermita inauguratzeko. ETC-prentsa

Horretaz gain, Gasteizko **alaba kutun** ere izendatu zuten (1982an), eta Euskalerriaren Adiskideen elkarteko kide merituduna zen. ETC-prentsa

Tapizen salerosketan zebilen aitaren **alaba kutuna** zen Bourgeois txikia. ETC-prentsa

Damuaren damuz, joan zaio **alaba kutunari**, aspaldiko partez bisita eginez, hogei euroak ematera, logelaraino. ETC-prentsa

18 *alaba legitimo* *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Izan ere, denborarekin, amak **alaba legitimotzat** aitortu ahal izan zuen Rosalía, baita paper ofizialetan ere -nahiz eta batzuetan **alaba legitimotzat** agertu eta beste batzuetan ez-, eta beraren lehen abizena eman zion, de Castro. ETC-entziklopedia

Hori ez badago, seme edo **alaba legitimoetatik** nagusia, gizonezkoek emakumezkoen aurrean lehenespena izanik, eta, horrelakorik ere ez badago, gazteena den aurreko ahaiderik hurbilena, lehenespen bera aplikatuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

19 *alaba nagusi*

Agian ezin duk burutik kendu Nerea hire **alaba nagusiak** gaur eskolara joan gabe geratu beharko duela sukarragatik? Pedro Alberdi

Arantxa Jose Uriosteren **alaba nagusia** da. Joseba Sarrionandia

Alaba nagusiak amona egin nau, eta horixe da orain nire kezka bakarra. Alberto Barandiaren

Melanie, **alaba nagusia**, iluna; gero Desiree, desiratua izan zena. Oskar Arana

Guztia duela lau urte hasi zen, 14 urteko **alaba nagusiak** amarena utzi eta aita eta haren mutil-lagunaren etxera ihes egin zuenean. Berria - Euskal Herria

Etxeko **alaba nagusia**. Patxi Iturritegi

Bost seme-alabetatik neska bat bakarrik etortzen zitzaion bisitan, berak bezalako ile luze beltz ia azula zeukan **alaba nagusia**. Sonia Gonzalez

"Ez horrenbeste erre, ama!", hots egin zuen Lizek, **alaba nagusiak**, leiho batean azalduz. Bernardo Atxaga

20 *alaba natural*

Seme-**alaba naturalak** eta legezkoak berdin-berdinak izango al dira? Andres Urrutia

Ezkontzaren aldekotasuna, ohitura onen sustapena, gizartearen nahia, orok nahi dute seme-**alaba naturalak** legezkoekin pareka ez daitezen. Andres Urrutia

21 *alaba ponteko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Luqueren gorputz zakarrak eta aurpegi estranbotikoak hitzik gabe gauza asko esaten dute, eta penaz betetako bizitzan **alaba-pontekoak** eragindako irribarreak badu hunkitzeko gaitasuna. ETC-prentsa

22 *alaba zaharren*

Bere seme-alabek ezaguera izan orduko, tirabiran hasi zen agudo haiekin ere; gehienbat **alaba zaharrenarekin**, seguru-ustekoa eta murrikazalea baitzen, zakartasunez egiten baitzion kontra. Fernando Rey

Püchl andrearen **alaba zaharrena**, Katharine, soka-saltoan zebilen egongelan. Anton Garikano

Susmoa daukat konbertsazioa baino gehiago emateko moduko neska ez ote den, eta senarrari eta bioi ez zaigu egokia iruditu gure bi **alaba zaharrenak** arrisku horretan edukitzea. Arantxa Iturbe

Plan horren arabera, Olga Nikolaievnarekin, tsarraren **alaba zaharrenarekin**, ezkontzeko asmoa zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tia Paca atarian dago Solerekin, ezer behar baduzu, eskatu berari -agindu zion **alaba zaharrenari**. Jon Maia

Trivandrum, Keralako hiriburuan gurasoak etengabe arranguratzen ziren, **alaba zaharrenak** ezkontzerakoan etxetik ez dakit zenbat diru eraman zuela eta. Gotzon Garate

Alaba zaharrena, Kathleen, komentu on batera bidali zuen, non ikasi baitzituen frantsesa eta musika, eta gero Akademiako ikasketak ordaindu zizkion. Irene Aldasoro

23 *ama-alaba pl*

Ama-alabak lurrean etzan ziren. Koro Navarro

Gure txalupatxoa bi emaztek gidatzen zuten, bata zaharra eta bestea gaztea, **ama-alabak**. Koldo Izagirre

Sydneyko denda handietan ibili ziren **ama-alabak** Europara eroango zituen opariak erosten. Xabier Montoia

Ez zen jaten ausartzen, ogia mozten zuenean **ama-alabak** begira zituela ikusirik. Karlos Zabala

Hura hil zen egunean, **ama-alabak** (zortzi urte, Rigobertak) bakarrik zeuden, finkako lanean. Pablo Sastre

Bazkalondoko ordu horietan, bi emakume zeuden mahai baten inguruan jarririk, **ama-alabak** eitez, gizonetan aritzeko itxura handirik gabeak. Aingeru Epaltza

-Oraintxe bada, nire lagunaren etxeko **ama-alabak** hemen baleude... Patxi Ezkiaga

Nahiko nahigabe eta zorigaitz baditen **ama-alaba** horiek, pentsatzen ahal dun. Anton Garikano

Ama-alabak eta aitona-amonak Zornotzan bizi dira orain. Berria - Euskal Herria

Izenik eman nahi izan ez duten **ama-alaba** bikote batek (50 eta 70 urte ingurukoak) gogor kritikatu dute komunismo garaia. Berria - Mundua

Bisenbis heldu zen autoan Paueko **ama-alaba** batzu ziren, biak hein bat bortizki kolpatuak izan dira. Herria

Bi emakumeek elkar besarkatu zuten, eta Badr-ek jakin ahal izan zuen **ama-alabak** zirela eta tranpan harrapatu zutela. Patxi Zubizarreta

Beharrezko bitartekoak berehala ditugu erabaki, eta nik hartu dut neure gain **ama alaba** gabe jalgi dadin deliberarazteko eginkizuna; bihar arratsaldean izanen da une erabakigarri hori. Jon Muñoz

Hala ere, ez nuen ur epelaz gozatzeko aukerarik izan, **ama-alabak** zuloren batetik zelatatzen ari zitzaizkidalako irudipen beldurgarriak asaldaturik egon bainintzen uneoro. Alberto Ladron Arana

Han daude **ama-alabak** eserita oraindik, harri eta zur. Oskar Arana

Azkenean aita auzitara eramatekotan zebiltzan **ama-alabak**. Gotzon Garate

24 *errege-alaba*

Errege-alabak dituzu inguruan, zure eskuinean erregina, urrefinez apaindurik. Elizen arteko biblia

Hara, hain buru argiko gizonik izan al liteke munduan inori buruan sartuko dionik, ez zela egia izan halako Floripes **errege-alabarena** eta Borgoñako Guirena, eta Mantibleko zubian Fierabrasek egina, Karlomagnoren egunetan gertatua dena? Patxi Ezkiaga

Smith kapitaina etiketaren kontuaz desenkusatu zen, hura **errege-alaba** zela eta. Juan Garzia

Ez du herriz kanpoko **errege alaba** bat hartu emaztetzat printzeak, bai haatik jende xeheetarik, Letizia Ortiz anderea. Herria

25 *herriko alaba*

Heldu den igandean agorrilaren 8an aratsaldeko 4 orenetarik goiti kontzertu edo musikaldi bat izanen da Uztaritzeko elizan, Delphine Lherbier **herriko alaba** organo joileak eskainirik. Herria

Joanden ortziralean esposatu zauku Juan Fermin Garzia izeneko luzaidar semea, laguntzat hartu du Silvia Villanueva izeneko Zubiri **herriko alaba**, meza Zubiri herrian izan da aratsaldeko 6 etan eta apairua Iruñe ondoko Gorraiz deitzen den herrian. Herria

26 *karitateko alaba* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Karitatearen Ahizpak edo San Bizente Paulen **Karitateko Alabak**, Bizente Paulek sortutako kongregazioa da. ETC-entziklopedia

Hemeretzi urterekin esan nien **Karitateko Alabei** Jainkoak zerbait eskatzen zidala. ETC-literatura, saiakera

Sendagile haiek, **karitateko alaba** haiek nigan interesa zutela zirudien. ETC-literatura, saiakera

Alaba eta suhia ezkondu zituen apaiza -Pagoagako apaiza, besteak beste- ostegunero hurbiltzen zen **karitateko alabek** prestatzen zizkioten olatak jasotzera. ETC-literatura, saiakera

Karitateko alabak, sendagileak, ikuskatzailea eta inudeak zituzten alboan. ETC-prentsa

Karitateko Alabak dira berriz Hegoaldean etxe kopuru gehien dutenak (48 bat) eta ugarienak era bai. ETC-prentsa

1880tik, gainera, Pauleko San Bizente **Karitateko Alabak** arduratzen dira Erruki Etxeaz. ETC-prentsa

27 *seme-alaba pl*

Jakoben **seme-alabak**. Jose Antonio Mujika

Bost **seme-alaba** zituzten. Irene Aldasoro

Seme-alabak Venezuelan zituen, eta neba-arrebak Donostian. Ramon Saizarbitoria

Sarai agorra zen eta ez zuen **seme-alabarik**. Jose Antonio Mujika

Baduzu **seme-alabarik**? Harkaitz Cano

Ez **seme-alabarik**, ez amaginarrebarik. Patxi Zubizarreta

Lurrak erosi zituzten han, **seme-alabak** sortu eta erruz ugaldu ziren. Jose Antonio Mujika

Zeruko Aitaren **seme-alaba** dira, haren obrak egiten baitituzte. Askoren artean

Nola hazi **seme-alabak** inguruan anarkia besterik ez dagoenean? Oskar Arana

Seme-alaben irakasleekin hitz egitera doanean, nahiago du erdaraz hitz egin. Koldo Zuazo

Horri dagozkio, baita ere, inguruko beste gaiak, hala nola, gurasoen ahalgoa, dibortzioa, **seme-alaben** egoera zibila, egoitza, absentzia eta abarrekoak. Andres Urrutia

Heure **seme-alabei** emaien, eta **seme-alaben seme-alabei** . Joxan Elosegi

Bi minutu igaroz gero, **seme-alabaren** bat izango duzu. Patxi Zubizarreta

Itziar emakume ona zen, beti ona izan da baina beraren bizitza hondatu egin dut, gizon hordia izatea zinez tristea da, eta gure seme-**alabon** bizitza ere desohorez lohitu dut. Gotzon Garate

· Gai honetaz dagoeneko luze idatzi dugu eta fenomeno normal eta beharrezkotzat jo daiteke, horri gurasotasun eta **seme-alabatasunaren** analogia aplikatu diogunean suposatzen zen bezala. Iñaki Mendiguren

28 *seme-alaba kutun* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* *pl*

Elisabetek ahal zituen eragin guztiak erabili zituen bere handinahia asetzen saiatzeko, hots, bere **seme-alaba kutunak** Europako tronuren batean ezartzeko. ETC-entziklopedia

Berdin dio soldadu errepublikanoak askatasunaren eta demokraziaren defentsaritzat jotzen ditugun edo ez, **seme-alaba kutuntzat** jotzen ditugun edo ez, herritar talde bati modu sistematikoan ez ikusiarena egin dion demokrazia afasiko honetan. ETC-prentsa

Karrera batek zenbat eta irteera gehiago izan, orduan eta egokiagotzat jotzen dugu gure **seme-alaba kutunentzat** . ETC-prentsa

Hiritar ilustratuak izan ohi dira asko: sarritan, ospetsuak, eta, beste askotan, hiriko **seme-alaba kutunak** , baina ezezagunak. ETC-prentsa

29 *seme-alaba legitimo* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)* *pl*

Baina zer arraiogatik sartu ote zuen Eladik artistaren alaba etxean, emaztearekin eta **seme-alaba legitimoekin** batera? ETC-literatura, saiakera

Aplikatu beharko litzaiokeen legeria egun hartakoa da, herentzia jasotzeko bidezko eskubidea **seme-alaba legitimoena** bakarrik zena. ETC-prentsa

Hirukiak **seme-alaba legitimotzat** har daitezke? ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina hau, lagunekin adeikor, atseginetan neurriko, ezkontza bakarreko, **seme-alaba legitimo** hutsez, ez zen gutxiago gerlari izan. ETC-literatura, saiakera

Odoleko horiek **seme-alaba legitimoekin** pilatzen badira jarauntsian, zatia ezin da sekula ere izan seme edo alaba legitimo bakoitzari seniparte gisa dagokionaren erdia baino handiagoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Seme-alaba legitimoez gain, Alfontso XII.ak gutxienez bi seme sasiko ere izan zituen, Elena Sanz kontraltoarekin. ETC-entziklopedia

Edonola ere, ez zuen **seme-alaba legitimorik** izan, bai, berriz, natural batzuk, Semeno leinua aurrera aterako zutenak. ETC-entziklopedia

Ezkontza honetan jaiotako seme-alabei, seme-alaba morganatiko deritze, eta, legeari dagokionez, **seme-alaba legitimotzat** hartzen dira. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita eta alaba (12); **aitak alaba** (5); **aitaren alaba** (7); **aitoren alaba** (6); **alaba aksa** (5); **alaba asko** (16); **alaba baino** (9); **alaba bakarra** (45); **alaba bakarra zen** (5); **alaba bakarraren** (5); **alaba bat** (121); **alaba bat ere** (7); **alaba bat eta** (6); **alaba bat izan** (20); **alaba batek** (10); **alaba batekin** (14); **alaba batekin ezkondu** (6); **alaba baten** (14); **alaba berarekin** (5); **alaba bere** (8); **alaba bezala** (13); **alaba bi** (7); **alaba biak** (12); **alaba bortxatzen** (6); **alaba da** (44); **alaba dela** (8); **alaba den** (8); **alaba ditu** (25); **alaba ditut** (5); **alaba edo** (17); **alaba eman** (5); **alaba emaztetzat** (8); **alaba ere** (30); **alaba eta** (191); **alaba eta bere** (5); **alaba eta bi** (5); **alaba eta horien** (27); **alaba eta seme** (6); **alaba etorri** (6); **alaba ez** (26); **alaba ezagutu** (6); **alaba galdu** (8); **alaba gaztea** (12); **alaba gazteena** (21); **alaba gazteenak** (7); **alaba gehiena** (5); **alaba gisa** (5); **alaba guztiak** (19); **alaba guztiei** (5); **alaba hazi** (5); **alaba hil** (22); **alaba hori** (6); **alaba horiek** (10); **alaba horien** (6); **alaba hura** (5); **alaba izan** (76); **alaba izan zen** (6); **alaba izan zituen** (16); **alaba izan zituzten** (8); **alaba izango** (15); **alaba izanik** (7); **alaba izatea** (10); **alaba izateko** (8); **alaba jaio** (15); **alaba jo** (6); **alaba maite** (10); **alaba maitea** (9); **alaba maria** (5); **alaba mikal** (5); **alaba nagore** (5); **alaba nagusia** (5); **alaba nagusiak** (6); **alaba naiz** (6); **alaba sortu** (5); **alaba ttipi** (7); **alaba txikiak** (7); **alaba ugari** (8); **alaba ukan** (5); **alaba utzi** (5); **alaba zaharrena** (12); **alaba zaharrenak** (12); **alaba zaharrenarekin** (5); **alaba zara** (8); **alaba zela** (15); **alaba zen** (72); **alaba zen eta** (5); **alaba zituen** (23); **alaba zuen** (7); **alaba zure** (5); **ama alaba** (10); **ama eta alaba** (11); **andrearen alaba** (5); **baina alaba** (9); **batek alaba** (5); **bateko alaba** (14); **baten alaba** (74); **baten alaba da** (7); **baten alaba zen** (18); **berak alaba** (5); **bere alaba** (191); **bere alaba eta** (7); **bere bi alaba** (6); **bere seme alaba** (19); **beren alaba** (10); **betuelen alaba** (5); **bi alaba** (73); **bi alaba ditu** (7); **bi alaba eta** (9); **bi alaba zituen** (5); **bi seme alaba** (27); **bi urteko alaba** (5); **bigarren alaba** (11); **bost seme alaba** (25); **da alaba** (7); **du alaba** (10); **du bere alaba** (6); **duten alaba** (5); **edo alaba** (50); **edo alaba bat** (9); **emaztea eta alaba** (27); **en alaba** (10); **ene alaba** (29); **eraman zuen alaba** (5); **ere alaba** (6); **errege alaba** (6); **erregearen alaba** (12); **eskaloteko alaba** (9); **eta alaba** (173); **eta alaba bat** (19); **eta bere alaba** (19); **eta bi alaba** (19); **eta haren alaba** (11); **eta hiru alaba** (12); **eta seme alaba** (18); **etxeko alaba** (14); **ez alaba** (5); **ez zuen alaba** (10); **familiako alaba** (5); **faraoiaren alaba** (6); **gobernadorearen alaba** (10); **gure alaba** (28); **haien alaba** (9); **haren alaba** (62); **haren seme alaba** (6); **hilabeteko alaba** (6); **hire alaba** (7); **hiru alaba** (27); **hiru alaba eta** (6); **hiru seme alaba** (57); **honen alaba** (8); **hunen alaba** (5); **ikarioren alaba** (7); **izan zuen alaba** (5); **jainkoaren seme alaba** (28); **jakoben alaba** (5); **jaunaren alaba** (5); **lau alaba** (10); **lau seme alaba** (30); **lehen alaba** (5); **markesaren alaba** (5); **medikuaren alaba** (10); **merkatariaren alaba** (7); **n alaba** (5); **nagusiaren alaba** (9); **nahiz alaba** (5); **neure alaba** (16); **nire alaba** (101); **nire alaba da** (5); **noren alaba** (6); **okinaren alaba** (8); **ren alaba** (16); **sanchizen alaba** (6); **sanchizen alaba nagore** (5); **saulen alaba** (7); **sei alaba** (6); **sei seme alaba** (7); **seme alaba** (532); **seme alaba asko** (12); **seme alaba ditu** (15); **seme alaba edo** (7); **seme alaba eta** (69); **seme alaba guztiak** (16); **seme alaba guztiei** (5); **seme alaba horien** (5); **seme alaba izan** (33); **seme alaba izango** (8); **seme alaba jaio** (5); **seme alaba ugari** (8); **seme alaba zituen** (14); **seme edo alaba** (27); **seme eta alaba** (18); **semea edo alaba** (17); **semea nahiz alaba** (5); **tabernariaren alaba** (16); **urteko alaba** (40); **zazpi seme alaba** (12); **zazpi urteko alaba** (5); **zen alaba** (16); **zenbat seme alaba** (9); **zeure alaba** (5); **zeure seme alaba** (5); **zitzaion alaba** (6); **zortzi seme alaba** (6); **zuen alaba** (39); **zuen bere alaba** (6); **zure alaba** (38)

aita alabak (29); **alabak baino** (6); **alabak bakarrik** (5); **alabak bere** (9); **alabak beren** (5); **alabak bezala** (5); **alabak d** (5); **alabak dira** (21); **alabak direla** (5); **alabak dituzten** (10); **alabak eduki** (5); **alabak ere** (54); **alabak ere bai** (6); **alabak esan** (6); **alabak eskolara** (5); **alabak eta** (85); **alabak eta bilobak** (5); **alabak eta emaztea** (5); **alabak etxean** (5); **alabak ez** (46); **alabak ez du** (5); **alabak ez ziren** (5); **alabak ez zuen** (6); **alabak gatibu** (8); **alabak hartu** (6); **alabak ikusi** (5); **alabak izan** (46); **alabak izan zituen** (20); **alabak izatea** (5); **alabak izateko** (8); **alabak izaten** (6); **alabak kendu** (6); **alabak nire** (5); **alabak taldea** (9); **ama alabak** (47); **amaren alabak** (57); **amaren alabak eta** (7); **amaren alabak taldea** (9); **baina alabak** (12); **baina seme alabak** (5); **baten alabak** (6); **bere alabak** (36); **bere bi alabak** (5); **bere seme alabak** (36); **beren alabak** (7); **beren seme alabak** (33); **bi alabak** (26); **bi seme alabak** (12); **dio alabak** (10); **ditu seme alabak** (5); **dituzte seme alabak** (5); **du alabak** (5); **edo alabak** (7); **emaztea eta alabak** (8); **eta alabak** (57); **eta amaren alabak** (8); **eta bere alabak** (9); **eta bi alabak** (5); **eta nire alabak** (5); **eta seme alabak** (129); **etorkinen seme alabak** (7); **etxeko alabak** (5); **euren seme alabak** (11); **euriaren seme alabak** (6); **faraoiaren alabak** (8); **gure alabak** (7); **gure seme alabak** (27); **haien seme alabak** (17); **haren alabak** (13); **haren seme alabak** (13); **hauen seme alabak** (5); **hiru alabak** (10); **hiru seme alabak** (14); **jainkoaren seme alabak** (6); **lau seme alabak** (7); **neure seme alabak** (6); **nire alabak** (33); **nire seme alabak** (30); **seme alabak** (934); **seme alabak d** (5); **seme alabak dira** (17); **seme alabak dituzten** (10); **seme alabak eduki** (5); **seme alabak ere** (32); **seme alabak eta** (46); **seme alabak ez** (17); **seme alabak gatibu** (7); **seme alabak ikusi** (5); **seme alabak izan** (43); **seme alabak izateko** (8); **semeak edo alabak** (5); **urteko alabak** (6); **zeure seme alabak** (8); **zion alabak** (7); **zituen seme alabak** (8); **zuen alabak** (12); **zuen seme alabak** (16); **zure alabak** (19); **zure seme alabak** (27)

aitak alabari (6); **alabarekin batera** (7); **alabarekin eta** (6); **alabarekin ezkondu** (12); **alabarekin ezkontzeko** (7); **alabarekin hitz** (5); **alabarekin hitz egin** (5); **alabaren aita** (9); **alabaren ama** (10); **alabaren artean** (6); **alabaren arteko** (7); **alabaren bat** (5); **alabaren berri** (6); **alabaren eta** (8); **alabaren etxean** (10); **alabaren izena** (6); **alabaren ondotik** (6); **alabari eta** (7); **alabari ez** (7); **alabari sexu** (5); **alabarik ere** (5); **alabarik ez** (17); **alabarik gabe** (21); **alabarik gabe hil** (5); **alabarik izan** (10); **alabatzat hartu** (10); **ama alabaren** (6); **baten alabarekin** (8); **bere alabarekin** (20); **bere alabaren** (63); **bere alabaren etxean** (5); **bere alabarentzat** (6); **bere alabari** (48); **dio alabari** (7); **du alabaren** (5); **dute seme alabarik** (5); **edo alabaren** (7); **emazteari eta alabari** (6); **esan zion alabari** (8); **eta alabarekin** (17); **eta alabaren** (25); **eta alabari** (21); **eta bere alabaren** (6); **eta haren alabaren** (5); **eta seme alabarik** (10); **ez seme alabarik** (5); **gure alabaren** (7); **haren alabaren** (8); **hiru seme alabaren** (5); **nire alabarekin** (8); **nire alabaren** (21); **nire alabari** (12); **seme alabaren** (29); **seme alabaren aita** (7); **seme alabaren ama** (7); **seme alabarik** (103); **seme alabarik ez** (13); **seme alabarik gabe** (21); **seme alabarik izan** (10); **seme alabatzat** (8); **urteko alabarekin** (7); **zen alabaren** (8); **zion alabaren** (6); **zion alabari** (23); **zion bere alabari** (10); **zioten alabari** (5); **zuen alabaren** (5); **zuen seme alabarik** (7); **zure alabaren** (9); **zure alabari** (7)

aita alabek (5); **aita alaben** (11); **alabei begira** (6); **alabei eta** (11); **alabek egin** (5); **alabek ere** (11); **alabek eta** (14); **alabek ez** (24); **alabek ez dute** (6); **alabek gurasoei** (5); **alabekin batera** (15); **alabekin eta** (8); **alaben aita** (12); **alaben ama** (18); **alaben artean** (14); **alaben arteko** (31); **alaben aurrean** (7); **alaben bila** (7); **alaben egoera** (8); **alaben eta** (10); **alaben haragia** (5); **alaben izenak** (5); **alaben zaintza** (10); **alaberi eta** (10); **alaberi eta familia** (7); **alabetako bat** (8); **alabetarik bat** (5); **alabetarik bat** (5); **ama alabek** (11); **ama alaben** (24); **ama alaben arteko** (13); **bere alabekin** (5); **bere seme alabei** (16); **bere seme alabek** (12); **bere seme alabekin** (11); **bere seme alaben** (17); **bere seme alabentzat** (5); **beren seme alabei** (16); **beren seme alabek** (11); **beren seme alabekin** (7); **beren seme alaben** (16); **bi alabei** (5); **bi alabek** (12); **bi alabekin** (5); **bi alaben** (6); **bi alaberi** (9); **eta alabei** (7); **eta alabek** (8); **eta seme alabei** (15); **eta seme alabek** (24); **eta seme alabekin** (19); **eta seme alaben** (47); **etorkinen seme alaben** (6); **euren seme alabek** (8); **gurasoek seme alabei** (5); **gurasoek seme alaben** (5); **gure seme alabei** (9); **gure seme alabek** (16); **gure seme alabekin** (5); **gure seme alaben** (12); **haien seme alabek** (7); **haren seme alabek** (7); **hiru seme alabekin** (6); **hiru seme alaben** (5); **jainkoaren seme alaben** (7); **nire seme alabei** (7); **nire seme alabek** (12); **nire seme alabekin** (5); **nire seme alaben** (6); **seme alabei** (179); **seme alabei begira** (5); **seme alabei eta** (9); **seme alabek** (245); **seme alabek ere** (11); **seme alabek eta** (9); **seme alabek ez** (17); **seme alabek gurasoei** (5); **seme alabekin** (127); **seme alabekin batera** (13); **seme alabekin eta** (6); **seme alaben** (329); **seme alaben aita** (10); **seme alaben ama** (15); **seme alaben artean** (10); **seme alaben arteko** (14); **seme alaben aurrean** (7); **seme alaben bila** (5); **seme alaben egoera** (8); **seme alaben eta** (7); **seme alaben haragia** (5); **seme alaben zaintza** (10); **seme alabena** (12); **seme alabengan** (15); **seme alabengana** (9); **seme alabengandik** (5); **seme alabengandik** (5); **seme alabengatik** (18); **seme alabentzako** (8); **seme alabentzat** (53); **seme alaberi** (21); **seme alaberi eta** (5); **seme alabetako** (11); **seme alabetan** (12); **seme alabetatik** (9); **seme alabez** (18); **zeuen seme alabei** (5); **zuen seme alabek** (13); **zure seme alabek** (7)

---

alababitxi *(corpusean **alabatxi**)* *iz ipar* alaba besoetakoa.

Hiru dira; aitatxi zaharra, haren **alabatxia** , elgarrekin bizi direnak etxe haundi batean eta aleman kapitain bat, gizon gaztea musika maite duena eta ere frantses literatura. Herria

Halere untsa lagundua izan da azken eguneraino, bere seme alaba heietarik, hiru serora eta sematxi **alabatxi** andana ederra denen nahigabearen erdian, zeremonia paregabea egin zaio. Herria

Ospitaleko gaztigu-orriaren ariora, balentriaren berri ematen ahalko zieten, zahartzean, semetxi eta **alabatxiei** . Aingeru Epaltza

alabadere *junt* alabaina.

Hemen, **alabadere**, berehala zalantza bat agertzen zaigu, hots, zer gertatzen da zerbait ezagutzen dudala uste dudanean, baina berez horrela ez denean? -pentsa ezazue Lurraren kasuan Colon-en garaiaren aurretik-. Askoren artean

alabadun **1** *izond* alaba edo alabak dituena.

Zorionez familia horretan kubatar bat zegoen, **alabaduna**. Edorta Jimenez

2 *seme-alabadun*

Kenkari handiagoak ezarriko dizkiete ezinduei, adineko herritarrei, etxebizitza erosi edota haurra adoptatu dutenei, **seme-alabadun** familiei eta bikoteei. Berria - Ekonomia

2003. urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kanpainak, beste berrikuntzen artean, "tratamendu hobea egiten dio **seme-alabadun** familiei eta adineko aitorleei" Juan Jose Mujika Gipuzkoako Ogasun ahaldunak atzo iragarri zuenez. Berria - Ekonomia

alabaina *(orobat **alaina** g,er.)* **1** *junt* hala ere; bada, izan ere. (perpaus hasieran)

Alabaina, tristurazko etxe hartantxe eman behar nituen aste batzuk. Koro Navarro

Alabaina, eta bigarrena da, autonomia gehitzeak ez du esan nahi independente bihurtzen denik. Piarres Xarriton

Alabaina, komeniko litzateke jakitea nor izan zen Lisboako egunsenti hartako almuedanoaren iratzartzearen pasadizoa idatzi zuena. Jon Alonso

Carlos Barralek eman behar zion espainierara egindako itzulpenaren alea; **alabaina**, zentsura frankistak debekatua zuen liburu hori argitaratzea, eta Mexikon argitaratu beharko zuten. Imanol Zurutuza

Alabaina, inork oina azpian hartzen badit, oinazea nik bakarrik senditzen dut. Patziku Perurena

Alabaina, beldur naiz ez ote diren gizonaz ahaztuko. Hasier Etxeberria

Alabaina, ez didazu zuk eraikiko etxea, zure erraietatik sortutako semeak baizik. Elizen arteko biblia

Alabaina, pixontzia hustu eta jateko zerbait esku artean erabili bezain agudo, denetaz ahantzi nauk. Aingeru Epaltza

Alabaina, hodeietarik erori nintzen, ikuskizuna bururatzera datorren operako jainko baten gisa. Jon Muñoz

Alabaina, patuak berriro ere elkartu nahi izan zituen Baram eta Asad. Patxi Zubizarreta

Alabaina, nagusiak, setati eta erretxin, oihuka jarraitu zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Alabaina, Pierre Chaunu-k 1959an zioen bezala, Kristobal Kolon eta Vasco da Gama ez ziren txinatarrak, eta merezi du gertaera horretan pixka batean luzatzea. Koro Navarro

Alabaina baziren lau irin eihera eta gainera oihalen tindatzeko okrea egiten zuen bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Datak Baieztatzeko Artea deritzon liburuaren ikasbidearen arabera, Kristo ondorengo seiehun eta hogeita biko uztailaren hamaseian hasi zela baitaki, K. O. laburtzapena erabiltzen bada, ahaztu gabe, **alabaina**, ilargiak gobernatzen duela musulmanen urtea, eta eguzkiak gobernatzen duen kristauena baino laburragoa dela. Jon Alonso

Alabaina, Robert Lopezek gogorarazten duenez 1971, ez industria, ez merkataritza eta finantzak, ez ziren sekula Erromatar Inperioan nabarmendu. Koro Navarro

Alabaina, baiezta dezakegu geometriaz esaten dena bertuteaz ere esan daitekeela? Askoren artean

2 (bestelakoetan)

54 urteko hezurrek ez zituzten **alabaina** bidaiak eta kanbiamenduak behiala bezain ongi jasaten. Aingeru Epaltza

Ugazaben asmoa, **alabaina**, 2003. urtean jakin zutela adierazi zuen. Berria - Ekonomia

Amak, **alabaina**, atsolutuki nahi baitzuen ehorzketarako elizkizuna gure herrian egina izan zedin. Daniel Landart

Nehork **alabaina** ez zuen sekula gure erako artzainik ikusi, ardika ibilki irratia edo liburu bat eskuan. Itxaro Borda

Min pixka bat eman dit, ez uste, lan hau egiteak, hots, Homeroren lan puska bati pusketak kendu beharrak, honako hau ez baita itzulpena, egokitzapena baizik, gazteei Homeroren kontaera hurbiltzeko egina; **alabaina**, gozamena askozaz ere handiagoa izan da. Juan Kruz Igerabide

Rodasko legea merkataritzan oinarritutako errepublika batentzat egina zen; **alabaina**, nik uste dut merkataritza-legeak berak ere muga hau ezarriko zuela: alegia, semea merkataritzan hasi eta gero aitak egindako zorrek ez zutela eraginik izango semearen ondasunetan. Iñaki Iñurrieta

Nola ahantz, **alabaina**, XVIII. mendean Joanes Etxeberri Sarakoak, "Euskal Herriko Gazteriari" egin zion dei gogoangarri hura? Piarres Xarriton

Notarioa, **alabaina**, errazkeria horren guztiz kontra azaldu zen; legea lege da, betetzeko eginda dago eta dena hasieratik bukaerara lekukoen aurrean irakurri behar dela agintzen du. Bego Montorio

Durduzatu nauzu **alabaina** zure ametsetako andre horrekin. Janbattitt Dirassar

Hor ikusi dut **alabaina**, zer neke eta arta sainduz behar zaren arduratu eta zein gartsuki irakasten ahal diezun Jesu Kristo gure Jaunaren zerbitzatzea baizik ikasi nahi ez duten ikasleei. Piarres Xarriton

Saiatu naiz **alabaina** beharrezkoak iruditu zaizkidan gutunak baizik ez gordetzen, dela gertakariak ulertzeko, dela izaeren bilakaerarentzat. Jon Muñoz

Oker zegoen, bai, zakurra animalia lohia izanik, mairuek ez zutela beren begibistan onartuko argudiatuko zuena, **alabaina**, onets daiteke etxeetatik kanpo edukiko zituztela, fereketatik kanpo, baita eltzekotik kanpo ere. Jon Alonso

Substantziaren izaerari dagokio, **alabaina**, haren atributu bakoitza bere baitarik ulertua izatea. Piarres Xarriton

Urak oheratzean ertzetan metatu hondakin kopurua ikusgarria zen **alabaina**. Itxaro Borda

Uztaritzeko apezgaitegiak gutiz gehienan apezak gintuen erakasle, **alabaina**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

alabaina eta (8); **alabaina ez** (19); **alabaina nik** (5); **baita alabaina** (8); **da alabaina** (12); **dira alabaina** (11); **ditu alabaina** (6); **du alabaina** (10); **dute alabaina** (7); **eta alabaina** (5); **zen alabaina** (15); **zuen alabaina** (12); **zuten alabaina** (6)

alabainan *adlag* alabaina.

-Ez, ez dut gaztea delakoan, ez baztertu, ez-eta bertze bati aitzindu, ez deuse; **alabainan** epaimahaian behar da izan ahal bezain xuxena. Menane Oxandabaratz

Urteetan sartzenago eta ederrago zitzaion, **alabainan**. Jose Angel Irigaray

Alabainan herria ez da aberatsa eta nondik berri lezake duen bide luze hori? Bere indar guziak baliatuz ere ez du deus gehiagorik egiten ahal. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zer zuzenagorik **alabainan**, holako etxe baten ukaitea baino gizadi batentzat, gizadi hau bere etorkiaz bertze gizadietarik berexa delarik, halaber bere mintzaiaz, halaber oraino bere ohidurez! Piarres Xarriton

Ezen feria ez da bakarrik merkatu bat, usaiako beste merkatuak baino handiagoa, denbora berean besta izaiten da **alabainan**. Herria

Aurten sorpresa bat, **alabainan** hor ikusten eta entzuten ahalko baitugu Uztaritzeko musikari, kantari eta dantzari talde batek apailatu sorkuntza. Herria

Alabainan badu mende erdi bat Herria hor dela astekari, ene euskara mainguaren sustengu bakarra. Herria

Alabainan biziko parterik handiena misionestegian iragan zuen. Xipri Arbelbide

Bertutearen zailtasunak bekatuaren goxoak baino goxoago izan behar du **alabainan**. Piarres Aintziart

Arte honetan, ahizparekin egotekoa naiz, badu **alabainan** norbaiten beharra. Janbattitt Dirassar

Nola utz, **alabainan**, hain maite zuen eliza xaharra? Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alabainan beren (5); **alabainan bereziki** (3); **alabainan besterik** (3); **alabainan duela** (3); **alabainan europa** (3); **alabainan ez da** (3); **alabainan frantzia** (3); **alabainan gaitzeko** (4); **alabainan gure** (4); **alabainan hain** (3); **alabainan helduden** (3); **alabainan herri** (5); **alabainan holako** (4); **alabainan hor** (5); **alabainan lehen** (4); **alabainan zer** (3); **an alabainan** (3); **badira alabainan** (8); **badu alabainan** (5); **baitira alabainan** (15); **baititu alabainan** (3); **baitituzte alabainan** (3); **baitute alabainan** (6); **baitzen alabainan** (8); **baitzuen alabainan** (3); **baitzuten alabainan** (3); **behar alabainan** (9); **behar da alabainan** (4); **diote alabainan** (4); **dira alabainan** (25); **ditake alabainan** (3); **ditu alabainan** (8); **dituzte alabainan** (4); **dugu alabainan** (3); **dute alabainan** (24); **ean alabainan** (4); **ere alabainan** (5); **ez baita alabainan** (5); **ez baitu alabainan** (7); **ez da alabainan** (6); **ez du alabainan** (7); **gira alabainan** (3); **hortan alabainan** (4); **izanki alabainan** (4); **lehen alabainan** (3); **nahi alabainan** (3); **zen alabainan** (13); **ziren alabainan** (3); **zituen alabainan** (3); **zuen alabainan** (6); **zuten alabainan** (4)

---

alabaino *iz* alabaina.

Ez zituena **alabaino** 30 presuna baino gehiago aireko hegazkietarik itsasorat pulunpatzera kondenatuak! Herria

---

alabaizun *(orobat **alaizun** g.er.) iz* alabaordea, ugazalaba.

Alaba, edo ebidentzia; **alabaizuna**, edo zeharkako jarduna. Anjel Lertxundi

Alabaizunez betea dago Europako ipuingintza tradizionala. Anjel Lertxundi

Suaren berorik gabe, nola imajina dezakezu **alabaizun** bat, ez bada elurra bezain zuri, argizaria bezain zurbil, kandela-metxa bezain dardarati? Anjel Lertxundi

---

alabamatar *izond/iz* Alabamakoa, alabamari dagokiona; Alabamako biztanlea.

Hori ikusita egin zioten **alabamatarrek** monumentu bat kotoiaren samuari. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

alabaño *iz ipar* alabatxoa.

Alabaño bat badugu, Luixa, eta Baionan ari da lanean. Janbattitt Dirassar

Naia izendatu dute beren **alabañoa**. Herria

Alabaño bat Marie Patricia eta Jean Marie Etchevers-en familian. Herria

Oharzabaleko Kattin eta David Labat-ek ongi etorria egin diote Pantxika deitu duten **alabaño** bati. Herria

Ongi etorri egin diote Michelle eta Beñat Vignau Tuquet Landa Xoko-koek beren **alabañoari**, Katixa deitu dutena. Herria

Ongi etorri egin dute Mariette eta Fabrice Mollon Laka-Alde-koek bere anaiaren lagun Maitena beren **alabañoari**. Herria

---

alabantza *iz* gorespena, goresmena, laudorioa.

Ai, jaun André, ez dizut kontatuko zein arrai eta alegera sentitu nintzen **alabantza** haiekin, zeren kontaezina bailitzateke. Joan Mari Irigoien

Helburu ederra noski, goi-mailakoa eta **alabantza** handiak merezi dituena. Patxi Ezkiaga

Bisita haietan hainbat aldiz berak eta egunkariek "kreazioak" esaten zieten jantzi horien **alabantza** egin ondoren, lortu nuen Luteziaren eta nire artean bi izakiren artean promes baten, are promes solemne baten baliokide den konfiantza hori sortzea. Matías Múgica

Hain ziren soberakoak eta neurriz kanpokoak aitak dukeari eskaini zizkion **alabantzak** eta laudorioak. Joan Mari Irigoien

Himnoak ausarki kantatu omen ziren eta ez denak Jainkoaren **alabantzan**. Aingeru Epaltza

Gizakien **alabantzen** bila gabiltza etengabe, gizaki besterik ez garelako, hain zuzen. Askoren artean

Ama, alabak bere kabuz ez ziola esango etsita, joan da behin mutilaren baserrira -mandaturen bat aitzakia zuela edo- eta harrapatu du mutila bakar antza eta hasi zaio alabaren **alabantzatan**: [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Herrian ezpata-dantza eta **alabantza** -oihuen artean hartu zituztela bueltatu zirenean. Xabier Etxabe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alabantzak eta laudorioak (6)

---

alabaorde *iz* ezkonlagunetako batekiko, besteak aurreko ezkontza batean izan duen alaba. ik**alabaizun**; **ugazalaba**.

Andrea asmak jota hil zenean, aurrezki guztiak utzi zizkion **alabaordeari**, hamar bat mila libera. Karlos Zabala

Aitaordekoaren eta **alabaordekoaren** arteko harremanak gero eta eztiago egin ziren, denbora joan ahala. Gotzon Garate

Alabaordea dut -erantzun zuen Arizmendi jaunak. Koro Navarro

Bitxia iruditu zitzaidan zein zuhurki saihesten zuen bere emaztearen eta **alabaordearen** izenak aipatzea. Oskar Arana

Neba-arrebak uzkur ziren hasierako garai haietako borroka handietan **alabaordea** erdeinatu ere egin zuen gizon batengana laguntza eske jotzeko. Oskar Arana

Enekoten alaba edo **alabaorde** ezkongabeetan etxean gelditzen zen zaharrena zen Sauvade. Aingeru Epaltza

---

alabarda *iz* Erdi Aroko arma, lantzaren antzekoa, goiko muturrean ganibet moduko bat duena, alde bat zorrotza eta bestea ilargi erdiaren formakoa.

Trieste ere sartu zuten, Carola alderdikide eta Meharraren amoranteak ordezkatuta, Italiako banderaz jantzita eta **alabarda** bat zuela bere bular nabarmenaren gainean. Koldo Biguri

Hori egindakoan, **alabarda** bazter batean utzi, eta, bere zaldun-ordenaren arau zorrotzak zintzo betez, lo geratu zen berriro. Jose Morales

Bitartean, gizon-emakumeek bazterrean utzi dituzte alkimisten sineskeriak, ehuleen ofizioak, belaontziak eta zalgurdiak, mosketeak eta **alabardak**. Felipe Juaristi

Tatariar haietako batzuek makila zuri bana zeramaten, eta **alabarda** itzel bana beste batzuek, zilarrezko eta urrezko hariz egindako borlekin apainduak. Karlos Zabala

Parisen, hiri katolikoa inon katolikorik bada, duela bortz egun, miliziakoek zati-zati eginen zuten, beren **alabardekin**, Kalbinoren alaba blasfemaria. Aingeru Epaltza

---

alabardari *iz* alabardaz armaturiko soldadoa.

Bola iletsu baten moduko kapela luzea zuen danbor nagusiaren makila dizdizariaren atzetik, gorriz jantzitako **alabardarien** ibilaldia zihoan. Lopez de Arana

---

alabardero *iz* alabardaria.

San Juan Plazatik pasatzean, mendebaldeko arkupe ilaran irmo, eguneko errege-zainketa egiten zuten **alabarderoak** topatu nituen. Txillardegi

Eta zainketa egiten zuten "gien" eta **alabarderoen** janzkerak berak dotoreago agertzen ziren egun hartan. Txillardegi

Hantxe, mendebaldeko arkupe ilararen erditsuan, berehala erreparatu nituen eguneko zaindariak, armaturik, **alabardero** jazkiekin, txapel gorri borladunekin, hantxe egiten eta egingo zuten zainketa aurrerakoan. Txillardegi

---

alabaso *iz ipar*

Bere hiru alaberi, Marta, Mayi, Mayalen, suhi, koinat eta **alabasoeri** gure doluminak. Herria

Ehorzketa ainitz jendek segitu dute eta meza denboran **alabaso** batek xixtuarekin eman du aire ezti goxo bat. Herria

Nehork ez lezake aipa, Mirentxu, bere **alabasoa** baino hobeki: [...]. Herria

Bere **alabasoaz** harro zegoen eta aldi berean arrangura bat senditzen zuen bihotzean. Eneko Bidegain

---

alabastro *iz* kaltzitaren aldaera den harri zuri eta zeharrargia, eskulturan eta ornamentazioan erabiltzen dena.

Horren ordez, Italiako Carraratik ekarritako **alabastro** zuriz egin zuten aurrealdea. Felipe Juaristi

Eskutik eskura pasatako **alabastro** hosto horiek dira esanguratsuenak. Harkaitz Cano

Kristo gure Jauna fariseu baten etxeko mahaian zegoen; eta Magdalena sartu zen, **alabastro** -ontzi bat bete ukendu zekarrela. Patxi Altuna

Anitzetan, arratseko freskuran edo afalorduan terrazarat iltkitzen ginen, non baitzegoen **alabastrozko** mahai bat eta, han, kopa bat arno edateko ohitura izaiten genuen. Joan Mari Irigoien

---

alabatasun **1** *iz* alaba izateko nolakotasuna.

Artean euskal nobelan jorratu gabeko gaia, beraz, **alabatasuna**. Berria - Kultura

Hizkuntza indoeuropar guztien senidetza -seme- **alabatasuna** edo lehengusu izatea- eta euren abiapuntu komuna izango litzatekeen hizkuntza arkaiko bat. Xabier Arregi

Gai honetaz dagoeneko luze idatzi dugu eta fenomeno normal eta beharrezkotzat jo daiteke, horri gurasotasun eta seme-**alabatasunaren** analogia aplikatu diogunean suposatzen zen bezala. Iñaki Mendiguren

2 ***adopziozko seme-alabatasun*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aldi berean, ondore horietatik bereizi da **adopziozko seme-alabatasunaren** eraketa. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

alabatto *iz adkor* alabatxoa.

Duela bi aste, Apairi-ko Aire Ona etxean, Maika izendatu duten **alabattoari** ongi etorri egin diote Michele Bercaits eta David Moustirats andere jaunek. Herria

Irratiak erranaz mintzatzen zitzaion, haren gaineko azalpenak emanez **alabattoari**. Xabier Montoia

Eragin dorpea izanen ote duen, oraino gauzak konplituki konprenitzeko gai ez den **alabattoarengan**. Xabier Montoia

---

alabatu, alaba, alabatzen du *ad* laudatu, goraipatu.

Nola nik halaxe erabakitzen bainuen garai hartan besteek zidatèn maitasuna -**alabatzen** baninduten eta nire izena goratzen, maite ninduten, eta bestela ez-, gizon hark ezin ikusi ninduela pentsatzera iritsi nintzen. Joan Mari Irigoien

Galde egiezu Espainiako sakelak husten jarduten duten langile guztiei... Ni **alabatzen** egunak emango lituzkete. Gotzon Garate

---

alabatxi ik **alababitxi**.

---

alabatxo *(orobat **alabatxu** g.er.)* **1** *iz adkor* alaba txikia.

Han bada haurtzaindegi bat, eta bertan utz dezake **alabatxoa**, hilabete gutxiko umetxo bat. Eskarne Mujika

-Pozten naun, **alabatxo** -erantzun nion. Joan Mari Irigoien

-Zu al zara, **alabatxo**? Juan Kruz Igerabide

Zure idealaren arabera bizi ahal izango zara aurrerantzean, **alabatxo**: parasito baten antzera alegia, senarraren kontura. Joan Mari Irigoien

Modu onez, arren eta arren, **alabatxoa** ongi hartzeko eskatu nion. Gotzon Garate

Malkuddi, Lakshmiren auzoko emakume batek bere hiru **alabatxo** salbatu zituen senarraren eta familiaren eskuetatik. Gotzon Garate

Bere bi urteko **alabatxoa** hartu eta bere burua eta haurra erre zituen. Gotzon Garate

Eta ondo egin nahi du, txukun, bere **alabatxoa** izango denarentzat bailarako sehaskarik politena nahi du, eta berak egingo dio. Eider Rodriguez

Egia da handitu zaiola **alabatxoa**. Herria

Alabatxoak hitz labur-laburrez erantzuten dio, zotinka. Gotzon Garate

Nire **alabatxoak** Ellen izango du izena, nire amak bezala. Lopez de Arana

Alabatxoaren erruz aldendu zitzaion Camilla ospitaleko linbo usaintsu hartara, **alabatxoaren** erruz egon ohi zen orain egun osoan bere satinezko etzaulki abrikot-kolorean. Mirentxu Larrañaga

Zilan ipini zioten izena **alabatxoari**. Juan Kruz Igerabide

Beriainen etxeko dobermanak bost urteko **alabatxoari** koska egin zion. Gotzon Garate

Egun batean **alabatxo** gazteena eztarriko minez itzuli zen eskolatik. Joseba Urteaga

2 ***seme-alabatxo***

Eta orain, Madrilera etortzen utzi behar al diogu hazitarako zezenko honi, gure lur sakratuaren bihotzera, beste ehun edo beste mila **seme-alabatxo** izan ditzan, nazionalismo baztertzailearen pozoia orotara zabaltzeko, "de tal Josu Ternera, tal torete semental"? Joan Mari Irigoien

Zuei, **seme-alabatxooi**, diotsuet: Barkatu zaizkizue bekatuak Jesusen bitartez. Elizen arteko biblia

Merkatariek beren **seme-alabatxoentzat** erosten dizkiote. Gotzon Garate

Eta haurraren bazterketa eskatzen zuten, beren **seme-alabatxoak** izurriak jota gerta zitezkeelakoan. Joan Mari Irigoien

PFR: Eta zure **seme-alabatxoak**? Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

alabatxoaren erruz (3); **bere alabatxoarekin** (3); **eta alabatxo** (3); **nire alabatxoa** (4); **seme alabatxoak** (3); **seme alabatxook** (5)

---

alabatxu ik **alabatxo**.

---

alabatzako **1** *iz* alabatzat hartzen den emakumezkoa. ik **alabaorde**, **alabaizun**, **ugazalaba**.

Lucy eskola on batera ari zen joaten, eta Davidek ezkontzaren ondoren hura **alabatzako** hartzeko asmoa zeukan. Oskar Arana

Alabatzakoa ukatu zion, eta ez zion aitortu beraren giza kondizioa ere, txakur bat bailitzan tratatu zuenez. Joan Mari Lekuona

2 ***seme-alabatzako*** *iz pl*

legepean zeudenak askatzera, guk **seme-alabatzakoa** har genezan. Elizen arteko biblia

---

alacantar ik **alacantdar**.

---

alacantdar *(orobat **alacantar**) izond*

Comunitat Valenciana taldeko Manuel Lloret **alacantdarrak** irabazi zuen Andaluziako Itzuliko bigarren saioa. Berria - Kirola

Alejandro Valverde **alacantarrak** (Kelme) irabazi zuen atzo Mallorcako Itzuliko hirugarren saioa, David Blanco (Kelme), Ruben Plaza (Kelme) eta Toni Colomi (Illes Balears) esprintean aurrea harturta. Berria - Kirola

---

aladura *iz* bihotz zimikoa.

Aurrera egitearen eta aurrera egiteagatik edukiko duen **aladuraren** artean aukeratu beharrez, Raimundo Silvak etxera itzultzea erabaki du. Jon Alonso

---

alaen *(orobat **alen**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **alaen** agertzen da)* **1** *izond* gaitzespenezko adjektibo baten ondoren, azpimarkagarri gisa, ezartzen den izenondoa. ik **halako 9**.

-Hi, astakirten **alaena**! Karlos Zabala

-Alfer **alaena**, jaiki hadi! ez duk lanik, ala? Aingeru Epaltza

"Ume zikin **alaena**!", entzun nuen bizkarrean etxe-lantegiko emakumearen ahotsa, nire atzetik lasterka zetorrela. Juan Kruz Igerabide

-Eta Foro Ermukoa da: espainolista **alena**! Iban Zaldua

Gasteizko Fakultatean batzarra, alias asanblada; zu hizketan ari, plastikozko zigarroa eskuan, eta hor atera naiz ni jende-artetik oihuz: "Mitxelena jauna, atzerakoi **alena"**. Iñaki Segurola

Zer esan nahi duk, nazkagarri **alaena**! Unai Iturriaga

Txepel **alaena**! Zer ikusiko zuen beregan, itxuraz aparte? Jokin Muñoz

-Gizajo **alaena**: ez diat kalterik egin, ez diat ezer esan. Juan Kruz Igerabide

Zorritsu **alaena**! Lopez de Arana

Beldurrak al hago, zorrizaku **alaena**? Patxi Zubizarreta

Nonzeberri **alaena**, faborea eskatu nionean, nire jakin gosearen etorkia azaldu behar izana nion, argibideen ordain. Aingeru Epaltza

Eta diruz josita dago alu **alaena**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zaitez nitaz errukitu, alproja **alaena**! Lopez de Arana

"-Gezurti **alaena**! -neskak. Koro Navarro

-Ez diat aitaren ganbaran sartzen utziko, zoro **alaena**! Edorta Jimenez

-Kabroi **alaena**! -egin nion garrasi petrikiloari indar guztiekin, eta kordea galdu nuen. Juan Kruz Igerabide

-Temati **alena** ni, nirekoi halakoa. Xabier Montoia

Zerri **alena**! - esan zion belarrira -. Jo ni, koldar **alaena**!

Nik ez nuela eskurik egoera malerus horretan -bai, "malerus" erran zuen-, nire andre ohiak baizik, ematxar **alaena**, senar gaixoa -bai, "gaixoa" erran zuen- aski ez, eta semea ere abandonatzeko birikak zituena. Aingeru Epaltza

Putakume **alaena**! Migel Angel Mintegi

Hirekin ez zegon ondo etortzerik, administratzailearekin berarekin ere liskartuko hintzateke huskeria batengatik, zikoitza **alaena**! -oihukatzen zion Grigorik. Jose Morales

-Nazkantea **alaena**! Jon Muñoz

Txolina **alaena**, zu ere bai. Karlos Zabala

2 (artikulurik gabe)

Alaen alua, orain zoroarena jotzen du aditasuna erakartzeko! Koldo Izagirre

Burutik jota dago tentel **alaen** hori! Karlos Zabala

Babalore **alaen** horrek. Karlos Linazasoro

Ez dut ikusi ere egin nahi, zerri **alaen** hori... Xabier Mendiguren Elizegi

3 ***kaiku alaen***

Polleti leporatu berri diotena adibide: **kaiku alaena**, ez hago hire herriñoan, hire moldeko laborari ezjakinez inguraturik. Xabier Montoia

Dirua maite du haren gainetik iraulkatzeko, eta, gero, leihotik kanpora botatzen du, **kaiku alaena**... Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ergel alaenak (3); **ero alaena** (3); **kabroi alaena** (4); **koldar alaena** (5); **putakume alaenak** (3); **zerri alaena** (3)

---

alafede *(orobat **alafedea**)* **1** *interj (perpaus hasieran)* baieztatzen dena indartzeko erabiltzen den hitza.

- **Alafede**, Korpanoff jauna -esan zion Mikel Strogoffi-, nolako kinka larritik atera gaituzun! Karlos Zabala

- **Alafede**! -oihukatu du Axenariok, eta aldi berean, bigarren ukabilkada batez beste kristala apurtu du, indarrez-. Itziar Otegi

Alafede, adiskide ederra, ez dakit gaizki irakurri edo gaizki ulertu dudan hala zure gutuna. Jon Muñoz

Alafede, egiteko eskatu hidana egiten ari nauk. Juan Garzia

Alafede, izan da esatekorik asko alde bietan; eta herriak ez dauka hobentzat tirabirara xaxatzea alderdiok. Juan Garzia

Alafede , ez; neurrira ekarriz gero karguak. Juan Garzia

-**Alafede** -esan zuen-, damatxo honentzako pieza eder bat, eta malenkoniaz ongi betea. Juan Garzia

2 (perpausaren barnean)

-Bai, **alafede** ; nire bihotza beste bati emana diot eta. Juan Kruz Igerabide

Baina, ez dago, **alafede** , ñabardurarako lekurik egungo mundu ero eta polarizatu honetan. Iñaki Heras

Neroni ere ongi pozik egon ohi naiz, **alafede** , gauza haiek entzuten. Patxi Ezkiaga

Ona, **alafede** , ateraldia. Juan Garzia

Gondorko Jaunak ez du beste gizakien asmoen bitarteko bihurtu behar, **alafede** , nobleetan nobleenak izanik ere. Agustin Otsoa

Eta ez da artzain on txarra, **alafede** , bere artegitxo unibertsalean ardi denak txuri-txuriak izatea lortzeko. Joxe Azurmendi

Bazter primitibo eta larreko guztietan bezala, Pasaian neskak eta atsoak daude bakarrik, erran nahi baita, loreak eta.. -bila ezazue Ronsard-enean, **alafede** , eskas den elea. Koldo Izagirre

Guztiarekin ere, bizitzen saiatzen hasten da, **alafede** , osasunaz, jakitez-eta arduratu gabe. Jose Angel Irigaray

Eta ez zion deitu, ez, **alafede** !, Joanesek niri deitu zidan legez, belarrira, hots, neuk ez beste inork entzuteko moduan, denek entzuteko eran baino. Edorta Jimenez

Ingeles erakasleak aldiz, lehenagoko handikeria eta snobismoak bazterrera utzi ditu, **alafede** baietz! Piarres Aintziart

3 (perpaus bukaeran)

Ondo erreko zaitzute, **alafede** ! Jose Morales

Haien adina zenbatesten nuen, batere eginkizun erraza ez, **alafedea** Joxe Austin Arrieta

Erreusitu genian **alafede** ! Itxaro Borda

Damu dut, bihotz-bihotzez, iraindu bazaituztete; bihotz-bihotzez, **alafede** . Juan Garzia

Mistival Anderea: Hala dago bai, **alafede** ! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Halako batean ere banuen nahikoa lasaitasun eta asti, basamortu oso bateko lasaitasuna, **alafede** . Joxe Austin Arrieta

4 ***bai alafede***

Hitza bete zuen, **bai alafedea** ! Sara noiznahi aritzen baitzitzaion, orain egunkaria nahi nuke, orain laranja zumo bat, eta orain kamamila azukre pixka batekin... Eta Pantxike, Sararen esanetara. Joan Mari Irigoien

-Bai alafede - Santxok erantzun -, eta zaldun maiteminduren bat izan behar du noski. Patxi Ezkiaga

Emakume xelebrea genuen amona Sinforosa, eta nortasun handikoa, **bai alafedea** ! Joan Mari Irigoien

5 ***ez alafede***

Aldagelatik irtetera nindoanean, ordea, jiratu eta halaxe esan nion: "Ez dizut huts egingo, **ez alafedea** !". Joan Mari Irigoien

---

alagala *adlag* egoki, aukeran.

Zuzendariak esan dit oso itxura ona duela liburuak, **alagala** datorrela. Berria - Kultura

---

alagalako *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) izond* egokia, aukerakoa. ik **alazoko**.

Jakina, Klementzia Richarden trebezia linguistiko horiek **alagalakoak** dira Bonaparte printzearentzat, eta haren "kolaboratzaile fidel" bihurtzea ahalbidetu zioten. ETC-literatura, saiakera

Joera horren adibide **alagalakotzat** du Beñat Oihartzabalek Donaixti-Ibarreko Lopez erretorea, zeinak 1782an argitaratu baitzuen Alfonso Rodriguezen Práctica de la perfección cristiana (1609) obraren euskarazko moldapen bat. ETC-literatura, saiakera

---

alagera ik **alegera**.

---

alagia *iz ipar* bazkalekua, larrea.

Nahi nuke lehenik aipatu, ur ekartze proiektu bat, gauzatu dena uda huntan Iparla azpiko **alagia** horietan (Murgaitz aldetik Mehatse-raino). Herria

Pistara joaiteko bi hitzordü badira: bata goizanko 08: 30etan Mauleko zerbütxügüneko botüra baztergian eta 08: 45etan Atarratzeko plazan, Pistako **alagiaren** gora joaiteko, eta bestea 09: 00ak eta 09: 15etan bi güne horietan beti, Pista gaineko olala joaiteko eta handik behera sartzeko. Herria

Bortükariak alkarteak, **alagietako** Arbaillen ezagützeko ebilaldi bat plantatzen dü, dagün neskenegünean, apirilaren 16an. Herria

---

alai **1** *izond* alaitasuna edo umore ona duena. ik **arrai**.

Beste etxebizitzan Tomas Osoro bizi da, gizon **alaia** eta hiztun dotorea. Koldo Izagirre

Nazkatu naiz bukaera tristea duten ipuin **alaiez** . Lourdes Oñederra

Tximinia erruz zizelkaturikoaren gainean, kolore biziko figura **alai** bat zegoen, mutiko nekazari ile-kizkur batena; halako trebeziaz egindakoa, erlaitzean eserita balego bezala eta zango bat airean zintzilik baleuka bezala irudi baitzuen. Mirentxu Larrañaga

Zinez esaten dizut, ene kapitaina, gizajo hori Gorteko jaunen zapatei distira eragiten Donostian uda **alai** bat bota nahi izan zuelako galernak harrapatu duen gazte zoro bat baino ez da. Koldo Izagirre

Gaztea atera daiteke **alaia** , normala, txintxoa eta pakeoxoa, hau da, paranoikoa; kontrako eztarriko psikiatrek idoro ziguten hipernormaltasuna paranoiaren era bat dela: beldur ikarante batek harrapatutakoaren izaera normal-normal-normala. Iñaki Segurola

Mutil **alaia** eta zintzoa zen, isila eta bakeosoa. Koldo Izagirre

Kontu **alai** eta argi askorik topatu eta bildu ahal izan nuen, eguerdiko tartetxo hori nola jantziko eta apainduko! Pello Zabala

Dei **alaiak** entzuten ari dira goitik. Xabier Paya

Karmen dantza-doinu **alai** bat hasi zen eskuz mahai gainean jotzen, eta berehala dantzara atera zituen, Amancio aurrena eta Jetru gero. Inazio Mujika Iraola

Niretzat liluramendu **alaia** zen doinu batekin ahoskatzen zizkidan, erakutsi bitartean ahora begiratzen ahal bainion. Fernando Rey

Eta, **alaiarena** eginez, botatzen du: Anjel Lertxundi

Xingola huts bat gaztaroaren kapelan, egokia, hala ere; gaztaroari ez baitoakio gutxiago bere kirol jantzi **alai** -arin eta ezaxola, adin pausatuari arropa ilun dotorea baino, zentzu eta seriotasunaren adierazgarri. Juan Garzia

Beti beltzez jantzita ibiltzen bazen ere, tia Maria oso umore **alaikoa** zen, beti ateraldiren bat edo errima bat ezpainetan. Jon Maia

Harro mintzatzen zen, mutil gazteen arrandia eta barre **alaia** zuen. Koro Navarro

Ikustekoa da ordea nola, jolas **alaietan** , alegrantzia laño eta egiazko baten irudia eskaintzen duen! Jon Muñoz

Haien arteko hormak marra txuri, gorri eta urdinezko paper **alai** baina marguldu batez zeuden jantzita. Alberto Ladron Arana

Behingoagatik, ez ziren barre gaiztoak, barre **alaiak** baizik, zirkokoen tipokoak. Jesus Mari Mendizabal

Ibaiaz, gurpil iluneko ur-putzuaz, uda **alai** eta baketsuaz, goizeko bostetan aurpegia argitzen zigun eguzkiaz, elizako baratzeaz. Eskarne Mujika

Gelan zehar biluzik pasiatzeko agindu zidan, eta bera, bitartean, arropa uzteko erabiltzen dudan jarlekuan eseri zen eta begira jarri zitzaidan aurpegi **alaiz**. Juan Martin Elexpuru

-Kontu **alaiagoak** orain -jarraitu zuen-, aurten atsegin handiz ongi etorria egin behar diet gure artera bi irakasle berriri. Iñaki Mendiguren

Halako naretasun **alai** bat, itsasoko uhinek oinazpikoa mugiaraziko baliote bezala, berehala jabetu bazen ere. Iñaki Iñurrieta

Martxa militarrak **alaiak** ziren, tan tan tantan tan tan, kalerik kale ibiltzeko gogoa ematen zuten eta gustura gindoazen gure banderekin, lantzean behin biba ez dakit zer eta denak bibaka. Joseba Sarrionandia

Domenga gehiagoko esplikaziorik gabe etxetik atera zen eta, handik laster, behako **alaia** zuen, eta irria ezpainetan zuen hogei urtez petikako neska gaztearekin etorri zen. Elena Touyarou

Nik, neure geroko bidean, barrualdeko parajeotakoa izanik, ia beti joko nuen egunaren argia eta ostarteen jokoa seinalatzera; alegia, egunaren parte **alaiena** aukeratuko nuen, euriari tartea txikituz, inportantzia kenduz. Pello Zabala

Plazan noizbait entzundako oihu **alaien** oihartzunaren bila. Edurne Elizondo

Bizirik egon den bitartean, gu biokin beste hamabi soldadu baziren, jende gazte **alaia**, Galeskoa eta Surreykoa; nekazari onak ere baziren, eta esku bat ematen ziguten lanean. Juan Garzia

Bere lekuan utzi genuen ostera tapa, torlojuez iltzatu, eta, burdinazko atea ondo itxita, etxeko goialdeko gela ez askoz **alaiagoetara** abiatu ginen, neka-neka eginda. Koro Navarro

Une horretan Oisin eta Bran heldu ziren, deiadarka aurrena eta zaunka **alaian** bigarrena, tarte batera Mael segika zetorkiela, nahigabe handiz besoak astinduz. Joanes Urkixo

Sarako leizearen aitzinean biluzirik ibiltzen ari zen, arin eta ergel, liliak bilduz, Vivaldiren antzeko musika **alai** eta baketsua entzunez. Ramuntxo Etxeberri

Zergatik ez? -galdegin nuen eta afaltzen jarraitu genuen giro **alaian**. Aitor Arana

Filistearren buruzagiak bildu ziren bere jainko Dagoni opari handi bat eskaintzeko eta jai **alaia** egiteko. Jose Antonio Mujika

Bere egiazko ametsa Hollywoodeko musikal **alai** batean paper txiki bat edukitzea izan zitekeela otu zitzaidan. Jon Alonso

Nahiz eta egunederzale ez izan, Mikelek gustura ikusi zion egunari bisaia **alaia**. Unai Iturriaga

Gero eta hurbilago sentitzen du hiru txita eta ama oiloaren zirin-usaina, eztitan ditu belarriak hegaztien txio **alaiekin**. Anjel Lertxundi

Keinu **alai** batez agurtu nindunan, eta nik berdin erantzun aurpegiari begira: katedral ondoko argiek uhertu egiten zinaten adatsa, hori-horia gaueko haizeak kilimatua. Javi Cillero

Orkestrakoak, hiru tronpeta jotzaile eta biolin jotzaile bat, aire **alaiak** jotzen ari ziren, oin dantzarako egokiagoak, belarri dantzarako baino. Felipe Juaristi

Bidelagunaren ibilera seguruak, ia **alaiak**, laster kutsatu du Abel. Pello Lizarralde

Barregileek kosta ahala kosta azaldu nahi izaten diote zergatik ari diren barrez; ez dute lortzen, noski, eta horrek areagotu egiten dizkie barre-algarak; eta areago baztertzen du indigena **alaien** taldetxotik atzerritar goibela. Jon Muñoz

-Egun on, ama - esan zion Georgek, bere ustetan oso ahots **alai** eta erakargarriaz. Iñaki Mendiguren

Bizimodu **alaia**; neskak, larrua suelto, jotzeko ere. Josu Zabaleta

ez zegoen gizon hura gelditzerik behin kontaketa **alaian** murgilduta. Jon Arretxe

Kutsu dramatikoa hartzen du kontuak hala aipatuta baina ez da hori gure asmoa, gizon **alai** eta baikorra izan baitzen Ibai-Ertz, umore onean gutxi bezalakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Kilkerrak eta zezen jenioz biziaren ibilerak batera entzuten nituela, ezer ez zela gertatu eta garai bateko familia **alaia** ginela iruditu zitzaidan une batez. Xabier Montoia

Jose Angel kuartelekoa zen, ume **alai** eta ederra, ile kirru beltzekoa. Agurtzane Juanena

Zeren bitartean behe hartan ilundu zuen eta goian, zubi eta kaien gainean, zilarrezko farolak piztu, Parisko gau **alaiaren** iragarle. Matías Mujika

Hastapen hartako dramatismo espantularitik urrun, erran zitekeen halako doinu **alai** bat iragazten zitzaiela. Aingeru Epaltza

Baina kasu honetan bere hasperena **alaia** da. Bernardo Atxaga

Eta batez ere, ez ezan sekula beste aldea Mendebaldeko sinpatiko horiek deskribaturiko paradisu **alai** horietako bat denik pentsa. Joxan Elosegi

2 (adizlagun gisa) ik **alaiki**; **alaikiro**.

Egoeraz jabetzeko zuen sen bizi harekin, amore eman beste erremediorik ez zutela konturatu zen Martin, eta esan zion Bautistari, euskaraz, oso **alai** zegoelako itxurak eginez: Koro Navarro

Gogoa **alai** zihoan. Itxaro Borda

Alai eta beteta dagoenak, badakizu zertara jotzen duen. Patziku Perurena

Eta halakoxe barne giroarekin abiatu zen iluntzen hartan, kuraiaz beterik, **alai** eta gogotsu. Patxi Zubizarreta

Donostiako txangoak eragin zion buruko mina, inoiz baino **alaiago** ibili arren. Javi Cillero

Jabea beti dotore-dotore jantzita ibili ohi da, eta beti inguruan dabilkigu, beti pozik eta **alai**, Bizar Zuri bezain; hartzik gabe, baina. Mirentxu Larrañaga

Eta gizateria pozik bizi dela ikusiko duzu, **alai**. Gotzon Garate

Han bere gauzak idatzi zituen koaderno batean: triste zegoenean gauza tristeak, **alai** zegoenean alaiak, gurasoekin haserre zegoenean haserreak, berekin zegoen mutil batekin maitemindu zen, eta maitasun gauzak, negarrak, pozak. Josu Zabaleta

Hegaztiek **alai** kantatzen zuten gauerdian, eguna argitu aurretik, eguerdian, edozein ordutan. Fernando Rey

Ondo da! **alai** hots eginez moilako jendeari barre eragiten ziona. Irene Aldasoro

Orain, ureztatu ostean, tente eta **alai**. Patxi Zubizarreta

-Laster pasatuko zaizu, aita - esan zion Johnek **alai**, Wendy logelan sartzen zen bitartean, botikaz betetako edalontzi bat zekarrela. Julen Gabiria

Bai: **alai** eta axolakabe eman zidan eskua, zerean, jatetxe batean topatu bagina bezala. Matías Múgica

Garai normal batean, txarrean hartuko nituen horrelakoak, baina orduan ez, **alai** segitzen nuen txantxangorri baten antzera. Joxan Elosegi

Apika, bizkarra horma gorriaren aurka ipinia duen horixe da, irribarretsu eta **alai**, pixkanaka night birdaren erresumara hurbilduz doan panpina eder gazte hura. Aritz Gorrotxategi

-Bai, egia da -esan zuen Harryk, **alai** barre eginez marmolezko eskailera gainera iritsi zirenean-. Iñaki Mendiguren

Haizea baino lasterrago itzultzen da neska hori, ez da posible Egia erran, Kattalin ez da ohartzen Sophie-k ez duela irririk barnean eta indar handia galdegiten diola **alai** agertzeko. Eneko Bidegain

-Eguerdiko ordu batean, jaun agurgarria! - egiten zuen durundi lehengo esaldiak, ahots-doinuaren aldaera guztietan esanik, noiz **alai**-isekari, noiz haserre, noiz temati eta sor. Jose Morales

Alai eta urduri joan dira; muturrez eta zapuzturik itzuli dira: neskak, mutilak edan eta edan ibili direlako; mutilak, neskek alkohol tantarik probatu nahi izan ez dutelako. Xabier Mendiguren Elizegi

Ordu arte **alai** samar ibili ginen, baina handik aurrera lotsatu bezala egin ginen, eta ez genuen esateko gauza handirik izan. Xabier Olarra

Gurasoak nahikoa **alai** zeuden itxuraz, hori zen balio zuena. Harkaitz Cano

Lasai eta **alai** nindoan ni, esnezalearen ametsetan kulunkatuta, baina Jontxuren mutur okerrak gatzatu egin zizkidan esnea eta odola. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta ez zetozen triste, **alai** zetozen eta kantuan hasten ziren lantzean behin. Joseba Sarrionandia

Denak **alai** daude. Pako Aristi

Hura esanda, aurrera jarraitu zuen **alai**. Joanes Urkixo

Rita ez zen askatu, ez eta trukean nire besoa estutu ere: baina nik haren urratsera egokitu nuen neurea, eta **alai** sentitu nintzen, garaile. Juan Garzia

Txistuka eta **alai** dator, obertura militar ezagun bat ezpain artetik dariola. Harkaitz Cano

3 ***jai-alai*** zesta-puntari deitzeko modua.

Iluntze askotan frontoira joaten ginen **jai**-alai partidetara. Edorta Jimenez

Bere lagun **jai**-alai jokalariekin. Edorta Jimenez

Jai-alai player diren aldetik ez ei zaie gaitz egingo granadak indarrez baina tentuz jaurtiz urpekontziko kontrol-dorrean hantxe bertan kokatzea. Edorta Jimenez

Donibane Lohizunen **jai**-alai ezker-paretan, kantaldia. Herria

4 *ordu alai*

Raimundo Silvak begiratu zuen behin, eta begiratu zuen berriz, unibertsoak hauxe xuxurlatzen du euripean, Jainkoarren, hau da tristura gozo eta leuna, ez dakigula inoiz ments, ez eta **ordu alaietan** ere. Jon Alonso

Hiru aste behar omen dire hozteko eta gero izanen da 2400 Kilo-ko laguna; **ordu alaiak** agian maiz joko ditu, bazterrerat utzirik deiadar ilunak. Herria

5 *zenbaki alai* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

32 bederatzigarren **zenbaki alaia** da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**
> **alai alai** (17); **alai batean** (7); **alai baten** (13); **alai batez** (7); **alai eta pozik** (12); **alai zaitez** (7); **alai zegoen** (10); **beti alai** (22); **bezain alai** (15); **doinu alai** (7); **hain alai** (12); **jai alai** (154); **oso alai** (21); **pozik eta alai** (14); **toki alai** (12)
> **alaia da** (19); **alaia egin** (11); **alaia ere** (9); **alaia izan** (26); **alaia izan da** (7); **alaia zen** (22); **aurpegi alaia** (12); **egun alaia** (8); **giro alaia** (9); **gizon alaia** (9); **jai alaia** (21); **joko alaia** (7); **musika alaia** (7); **oso alaia** (11)
> **giro alaian** (7)

---

alaialdi *iz* alaitasun garaia.

Bakoitzak Alemanian utzitakoa ikusi zuen oroimenaren ispiluan: lana, eguneroko lana bulegoan; paseatzeko eta solastatzeko lagunak, **alaialdian** elkarrekin irri egiteko lagunak, ilunaldian elkar kontsolatzeko lagunak; haurtzaro inozo eta tolesgabea, auzoko haurrekin jolasean [...]. Felipe Juaristi

---

alaiarazi, alaiaraz(i), alaiarazten du *ad* alaitzera behartu.

Beren gaiztakeriaz **alaiarazten** dute erregea, beren azpikeriaz buruzagiak. Elizen arteko biblia

Jainko maitalea niregana etorriko da eta etsaien porrotaz **alaiaraziko** nau. Elizen arteko biblia

---

alaigarri 1 *izond* alaitzen duena.

Esango lioke, jendea aurkitzen dudanean, lagunak edo ezagunak, ba, ni ikusteak poza ematen diela sumatzea haien aurpegietan, nire presentzia **alaigarria** dela haientzat. Pako Aristi

Sagar-pastela bukatu zutenerako, sorginkeria **alaigarrien** eragina desagertuz zihoakien. Iñaki Mendiguren

Begitarte gozoa jarri zuen, gozoegia aukeran, hala nola izaten baita gozoegia mediku antzetsuak, gaixoari **alaigarri** izango zaiolakoan, neurririk gabe eztitzen duen edabea. Jose Morales

Ostolazarekin egon eta gero zoragarria iruditu zitzaion kutsadurak higituriko gainaldea, **alaigarria** kaleko zarata eta lasaigarria jendearen joan-etorri zoroa. Migel Angel Mintegi

2 (izen gisa)

Ez zeukan beste **alaigarririk** sabaitik jaitsi eta bere argi estalki handia mahaiaren gainean hedatzen zuen kobrezko lanpara baten distira baizik. Karlos Zabala

Tokiko fruitu eta baratzekiak, Idiazabalgo gazta, hango ardilatxarena, abere feriak eta horra zerekin dute alde batetik jendea berotu, gainerateko **alaigarriak** ahantzi gabe, soinu dantza eta garagar sagardoak zintzur eztarrietako. Herria

Alkohola, aldartearen **alaigarri** eta bihotzaren pizgarri hori. Juan Garzia

Mirra, aloe eta kanela usaizkoak zure jantziak, harpa-soinua marfilezko jauregietan zure **alaigarri**. Elizen arteko biblia

Bela zuri batzuk ageri ziren ur ederren **alaigarri**, eta eguzkiaren printzek milaka distira sortzen zituzten ur azalean. Karlos Zabala

Gau guzian *Les Genêts* taldea **alaigarri** karriketan. Herria

Nahi ahala haragi fresko omen -ez bakarrik plater barnean-, eta halaber hauts xuria nasaiki, sudur zuloen **alaigarri**. Aingeru Epaltza

Ozta-ozta baliatzen zitzaidan **alaigarritzat** Giulia aldameneko gelan sentitzea, ahots lausoz "udaberri dugu, esna zaitezte neskatilok" kantari. Juan Garzia

---

alaiki *adlag* alaitasunez.

Jaunaren Espiritua gainera etorri zitzaiolarik, korrika joan zen toki hartara, eta, txoriak **alaiki** agurtu ondoren, isilik egoteko agindu zien, Jaunaren hitza arretaz entzuteko. Askoren artean

Uniforme gris-urdinez jantzirik, hiruzpalau guarda ari ziren elkarrekin **alaiki** mintzatzen, erdi irriz. Ramuntxo Etxeberri

Turismo iragarki zaharrak, modaz kanpoko aldizkariak, telefono zenbaki zaharkituak... **alaiki** botatzen ari nintzen eskuetara zetorkidan guztia zabor-poltsa handien barrura. Joxan Elosegi

Egun hura urtero **alaiki** ospatzeko agindu zuen Simonek. Elizen arteko biblia

Jauzi eginez jaitsi eta **alaiki** saltoka hasi zen hankei gora eta behera etengabe eraginez eta, aldi berean, gona belaunetaraino altxatuz. Lopez de Arana

Nork berea jarrai dezala, **alaiki** eta seguru bere forma indibidualari buruz, zeren, den gauzarik altuena izaki, inon ez bezala hartu behar baitira kontuan poesian indibidualtasunaren eskubideak. Bernardo Atxaga

Barrez hasi zen, ozen eta **alaiki**, eta berak, izuturik, neurririk gabeko alaitasun basatia ikusi zion aurpegian. biraturik zeukan aulkia, Delacour andereñoaren aurrez aurre egoteko, eta eskuineko hanka ezkerreko belaun gainera **alaiki** emanda. Jose Morales

Berdin-berdin dio -Liviak umoretsu eta **alaiki**-. Joxemari Iturralde

Etxekoandreak, ostalariak, alabak eta Maritornesek, Don Kijote eta Santxo zetozela ikusi zutenean, bidera irten zitzaizkien beren poza bizi-bizi agertuaz, eta, **alaiki** baina errespetu handian, agur-erantzun zien honek; eta, aurreko hartan baino etzangu hobea eratzeko. Patxi Ezkiaga

Lanparatxo elektrikoen argi itsugarria **alaiki** hedatzen zen bazter guztietara. Jose Morales

Badakizu zer egingo dudan hurrena, hor gora joaten garenean? -esan nion **alaiki**-. Bernardo Atxaga

Nonahi dela, poz argitsu bat **alaiki** eta bizkor igaroko da gure bizitza bilbatzen duten atsekabe ugarien artetik. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alaiki eta** (3); **eta alaiki** (9)

---

alaikiro *adlag* alaiki.

Gurekin jan eta edango duzu **alaikiro**, gure erregearen jauregian bizi diren emakume asiriarrek egiten duten bezala. Jose Antonio Mujika

Bere baliabideen neurrian bazekien bizitzaz **alaikiro** gozatzen. Josu Zabaleta

Jainkoak seguru aski gehituko zuen: Jan bizitzaren arbolatik, izan basatiak, izan zerriak, izan berekoiak, ibili iraulka lurrean **alaikiro**; baina ez ezazue jakintzaren arbolatik jan, zeren fruitu mingots horrek hobetzeko joera emango dizue, eta joera horrexek deuseztatuko zaituzte. Josu Zabaleta

-Asmatu zerbait, Hans! -hots egin zion espainiarrak **alaikiro**. Alberto Ladron Arana

Makila ez zuen makulutzat erabiltzen (ez zuen beharrik), baizik eta **alaikiro** jiraka erabiltzeko airean, eta bidera irteniko txakur ozarregiak paretik kentzeko. Juan Garzia

Sukaldeko mahaira eseri ziren hirurak, atea zabalik utzita eguzkia sar zedin; eta hain **alaikiro** bazkaldu zuten, ezen François andreak miraz begiratzen baitzion Florenti, mokadu bakoitzean honela errepikatzen ziola: [...]. Karlos Zabala

---

alaikor *izond* alaitzeko joera duena.

Betor, brisara usaintsuok, betor // Ceylan gainera zuen kemena // non itxarobidea den **alaikor**, // salbu eta heriotzarena. Xabier Olarra

---

alaina ik **alabaina**.

---

alaintso *interj* alajaina, alajainkoa.

Eta Bozateko Bentako agote bilo holliak -ez, baina, inda zaharreko kadrillea, irri karkaran "dolce far niente"an-, eta **alaintso**!, Trinitate Hirutasuna urzo, bele, harma, tiro, pum, erroketaz perroketaz mozorroturik dena benedika [...]. Jose Angel Irigaray

---

alaitasun 1 *iz* alaia denaren nolakotasuna.

Jainkoa izpiritua da eta izpirituaren dohainak dira maitasuna, bakea eta **alaitasuna**. Joan Mari Lekuona

Latinez ez al zaio *laetamen* esaten simaurrari, hots, **"alaitasuna"**?; hala irakatsi zidaten batxilergoan, hala izan zen Virgiliorentzat, eta hala gertatzen zen ostera ere niretzat. Juan Garzia

Jar zaitez zeure ondare duzun herriaren alde, eta bihur ezazu **alaitasun** gure atsekabea. Elizen arteko biblia

Badakizu izatez ez naizela batere alaia, eta hemen egitekoa dugun bizimoldea ez da **alaitasun** hori areagotzeko egina. Jon Muñoz

Haien dolua **alaitasun** bihurtuko dut, atsekabearen ondoren kontsolatu eta alaituko. Elizen arteko biblia

Gaixotasunaren ondorioz, ematen zuen bazuela harritzeko moduko bizkortasun berezi bat: **alaitasun**, sormen, tolesgabetasun, narotasun bat, beste gaixoei, eta orobat gainerako guztioi, zoragarria iruditzen zitzaiguna dosi txikitan. Xabier Olarra

Bekatu egitea gauza ederra baita, eta bikotean gozoago, soinu txikiaren kontrako amorru honek berak salatzen du, ordea, euskaldun xehek maite zuela kondenaziozko tresnaren **alaitasuna**. Koldo Izagirre

Poztasunaren afektua, Izpirituari eta Gorputzari batera dagokienean, Kilika edo **Alaitasuna** deitzen dut; eta Tristuraren afektua, berriz, Oinazea edo Malenkonia. Piarres Xarriton

Sentimendu nahasiak irribarre faltsu bat eragiten dit ezpainetan, tristura eta **alaitasuna** batera, eta beldurra ere bai agian. Mikel Hernandez Abaitua

Pertsona hauek asko zaindu behar dituzte beren buruak, beren **alaitasuna** hazten delako barruan eta gainez egiten duelako, ardi berriak upeletan irakiten duen eran. Joan Mari Lekuona

Jainkoa izpiritua da eta izpirituaren dohainak dira maitasuna, bakea eta **alaitasuna**. Joan Mari Lekuona

Behar bezain luze jasaten du eramanpen handikoak, eta gero **alaitasuna** itzultzen zaio berriro. Elizen arteko biblia

Miragarri hauen maitasun-begirada garbiak gainezka eginarazten dio bihotzari, halako atseginez, non bere gorputz ahulak ez baitezake barruan gorde gertakari ikusgarrietan lehertzen den **alaitasuna**. Joan Mari Lekuona

Joan dira soroetatik poza eta **alaitasuna**; mahastietan ez da gehiago oihu eta kantarik. Elizen arteko biblia

Alaitasuna pobretasunean eta sufrimenduan; gauzen ukapena eta sorkari guztiekiko hurbiltasuna. Askoren artean

Bihotzeko pozak bizia ematen dio gizakiari, eta **alaitasunak** bizitza luzatzen. Elizen arteko biblia

Argiak kolorea esan nahi baitu, eta koloreak **alaitasuna**, eta **alaitasunak** bizitza. Felipe Juaristi

Bata penak eta desilusioak belztua da, bestea **alaitasunak** eta aberastasunak argitua. Xabier Olarra

Jende alai gehiegi agertzen da, **alaitasunaren** plusbalia arraro bat dago telebistako pantailan. Pako Aristi

Elkarren ondoan, bi andreek ilunaren eta argiaren irudia osatzen zuten, tristeziaren eta **alaitasunaren** enblema moduko bat. Bernardo Atxaga

Imajina dezakezue soinu haren bizitasuna, **alaitasuna** eta grazia nolakoak izango ziren aste osoa musikarik entzun gabe pasa zuten gazte haientzat? Pako Aristi

Bizitzarekin onezkoak egin dituen jakitea, gizakien gizakiekiko jakiteak ezinbestez izan behar du **alaitasunaren** adierazpenik sakonena. Piarres Xarriton

Pobretasuna **alaitasunarekin** batera non, / gutiziarik eta diru-goserik ez han. Itxaro Borda

Ortzirale aratsean zikiro jatea **alaitasunean**. Herria

Areago hurbiltzean, aurrena harriduraz, gero **alaitasunez**, hitz bat osatzen zutela egiztatu zuen: [...]. Bernardo Atxaga

Egia esaten dizuet, anaia eta adiskide maiteok: zuen hitzak entzuten hasi orduko, **alaitasunez** bete naiz, pozez gainezka nago. Askoren artean

Kezka eta estutasun guztiak aienatu ziren, gorputz nekatua iluntasunean deuseztatu zen, eta gogamen **alaitasunez** unatuak lasai sortzen zituen irudi distiratsuak, kolorez eta baretasun isilez beteak. Jose Morales

Itxaropen-iturri den Jainkoak **alaitasunez** eta bakez bete dezala zuen fedea. Elizen arteko biblia

Kutxa erregistratzaileak **alaitasunezko** hots bat egin zuen, dirua jasotzeak poz handia eman balio bezala. Lopez de Arana

Halako batean, erasotzaileetako batek **alaitasunezko** oihu bat egin zuen. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Poz bizia sortu diezu, **alaitasun** handia eman. Elizen arteko biblia

Garai hartan ederresten nuen hitz batekin esanda, agerpen hura inefablea izan zen niretzat, eta **alaitasun** berezi bat eman zidan, haurtzaroko oroitzapenekin eta paisaia gozo batekin lotutakoa. Bernardo Atxaga

Alexandrek koloso baten **alaitasun** eder benetakoa zuen, haur handi zoriontsu baten antza. Karlos Zabala

Alaitasun lauso baina neurrigabe eta ausart baten sentipena. Jose Morales

Galdera horiek optimismoaren, esperantzaren eta **alaitasun** lasaiaren ustela salatzen dute. Iñaki Segurola

Egiazko **alaitasun** espirituala besarkatzen zuen bitartean, arretaz egiten zion ihes **alaitasun** faltsuari, jakinik perfekziorako lagungarri dena sutsu maitatu behar dela eta arretaz baztertu kaltegarri dena. Askoren artean

Wood seigarren urteko mutil garai eta indartsu bat zen eta, une hartan, begiak dir-dir zituen **alaitasun** ero batez. Iñaki Mendiguren

Zergatik poz hori, **alaitasun** sakon, ulertezin hori? Josu Zabaleta

Horrela bada, neguak ere ustekabean amaitua zirudielako ere bai, inauteri azken eguna zalapartaz eta **alaitasun** urduriz beteta zegoen. Josu Zabaleta

Une hartan atea sentitu genuen eta Annette sartu zen **alaitasun** iskanbilatsuz. Anjel Lertxundi

Iritsi ziren denak hirira, eta **alaitasun** eta bozkario handiz gorputz txit santua leku sakratuan ezarri zuten, ordutik aurrera sakratuago bihurtu zen lekuan. Askoren artean

Jainkoak eta bere aingeruek, beren eraginaldietan, zinezko **alaitasuna** eta poz espirituala ematen dute, etsaiak eragiten duen tristura eta asaldura oro uxatuz. Patxi Altuna

Ezer gertatu ez balitz bezala hasi zitzaidan hizketan, ohiko **alaitasun** eta axolagabekeriaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Delako **alaitasun** edo lasaitasun hori, beranduko helenismoaren garaiko '**alaitasun** grekoa", ezin ote liteke izan gainbeheraren, nekearen, eritasunaren seinale?, arrats-apaleko argi gorri ilaunaren pare? Iñaki Segurola

Paristarren bizimoduaren **alaitasun** natural-naturalak bete-betean liluratu ninduen. Anjel Lertxundi

Agian berdin iraganen dire Ihauteriak betiko **alaitasunean**. Herria

Bi zati horietako batean nire kanporako **alaitasuna** dago, nire txantxak eta barreak, nire bizipoza, eta batez ere gauzak ikuspegi arinenetik hartzeko modua. Josu Zabaleta

Poz-oihuka etorriko dira Sionera: amaigabeko **alaitasuna** haien aurpegian! Elizen arteko biblia

Lau lagunek neurrigabeko **alaitasuna** eta espirituzko poz izugarria izan zuten. Askoren artean

", edo gezurrezko **alaitasunez**: "Beraz, nagusiak amore eman du!". Joseba Urteaga

Itxurazko **alaitasun** batez begiak hasieratik erakartzen dituen urre koloreko berniz batez dago margoturik nire pipa. Monika Etxebarria

Kristauek hainbesterainoko poza aurkitu beharko lukete hemen, non barruko **alaitasunez** gainez egin behar luketen maitasunean eta eskerronean. Joan Mari Lekuona

Santua poztu egin zen, bihotz barrurainoko **alaitasunez** poztu ere, ikusiz Dama Pobretasunari azkenera arte leialtasuna gorde ziola. Askoren artean

Aspaldiko ohidureri jarraikiz, aurtengo ihauteriek ere bete dute beren eginkizuna, **alaitasunez** beterik herri guzia, eta bildurik gazteria osoa, batasun anaikorrean. Herria

" **Alaitasunez** eta harrotasunez" beteriko ekitaldia egingo dutela esan zuen San Gilek. Berria - Euskal Herria

Burla-haizea, haien injenuidade mugagabeagatik, **alaitasun** apika itxurazko baina beti ageriagatik. Xabier Mendiguren Elizegi

Keinua hain txikia izan zen, eta apar geruza, berriz, hain ugaria, non neke izango baikenuke [...] zehatz-mehatz adierazten keinu hura **alaitasun** xumekoa izan zen edota etsipen maxkalekoa. Karlos Linazasoro

-Ni, berriz, mutilzahar! - **alaitasun** nabarmen bortxatuaz. Aingeru Epaltza

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Onorino atera banderarekin azaldu zenean, mutil guztiak bildu ziren ingurura, **alaitasun** oihuz. Josu Zabaleta

Gure martirien **alaitasun** -kantek printzearen kontrako atentatua ziruditen; martiri tituluak, haien espirituan, errebelde esan nahi zuen, eta ikaratu egin zituen magistratuak. Iñaki Iñurrieta

Alaitasun erakustaldiak debekatuta baitzeuden. Harkaitz Cano

Berriro gogoa pizteko bezala, **alaitasun** olde bitxi bat jabetu zen berriro neskez. Josu Zabaleta

Eguerdiko kanpai-hotsekin batera kaleak gulasch saltsaren usainez betetzen ziren, eta, orduan, adeitasun eta **alaitasun** sentimendu bat zerion guztiari, kaleak goraino betetzen eta bakea betiereko balitz bezala arimak erabat asetzen zituena. Xabier Olarra

Inguru desolatuan **alaitasun** printzen eran lehertu ziren zaldi kolore bizi haiek. Harkaitz Cano

Arin eta erne sentitzen zen, eta axolagabe mintzatu zitzaion Maryri, harengandik **alaitasun** -izpiren bat jasoko zuelakoan ordainetan. Mirentxu Larrañaga

Ihauteriak **alaitasun** -izurri arin bat bezala lehertu ziren negu hartan. Xabier Olarra

Inork ez baitzuen alferrikako irribarreekin edo itxurazko **alaitasun** -agerpenekin bere kemena nabarmendu nahi. Jose Morales

Hain aurpegi eta ahots komikoak jarri zituen, ezen garagardo beltz botilak **alaitasun** giro erabatekoan banatu baitziren. Irene Aldasoro

Gauza guztien gain agintzen duen Jainkoak, herri aukeratuaren suntsipen-eguna izango zena, **alaitasun** -egun bihurtu die. Elizen arteko biblia

Florent ohe ondoan esertzen zen, arrain azokaz solasean, **alaitasun** apur bat ekarri nahirik. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Emozio "bortitzak", bizirik irauteari dagozkionak, zenbaitetan estresetik urruti ez daudenak, eta "alerta eta kontzientzia magikora bihurtzeko jokaerak" dituztenak: beldurra, ezustea, berritasuna, gorputz-**alaitasuna**. Bizitzaren eta kristau-**alaitasunaren** oinarria barne-pobretasuna da, nor bererik ezer gabe apalki bizitzea, eta horixe da gizakiaren egiaren neurria. Josu Zabaleta

Ez al duzue ikusten kendu digutela janaria, falta direla poz-**alaitasunak** gure Jainkoaren etxean? Elizen arteko biblia

Berebiziko poz-**alaitasuna** sentitzen zuen, ikusten baitzuen zein aurpegi onbera eta atseginez begiratzen zion neurrigabeko edertasuna zuen serafinak. Askoren artean

Nola errezatzen zuen Orduen liturgia eta espiritu-**alaitasuna** gordetzen. Askoren artean

Isilaraziko ditut lurralde honetan, zuen begi-bistan, zuen egunetan, poz-**alaitasunezko** oihuak, senar-emaztegaien kantuak. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **alaitasun eta** (21); **alaitasun eta omore** (3); **alaitasun handia** (7); **alaitasun handian** (3); **alaitasun handiz** (16); **alaitasun hau** (3); **alaitasun hoberenean** (6); **alaitasun hori** (6); **alaitasun osoan** (3); **alaitasuna adierazteko** (4); **alaitasuna emanen** (5); **alaitasuna emanen dute** (3); **alaitasuna ere** (3); **alaitasuna eta** (22); **alaitasuna ez** (5); **alaitasuna izango** (5); **alaitasuna zen** (3); **alaitasuna zen nagusi** (3); **alaitasunak eta** (3); **alaitasunez bete** (4); **alaitasunez beterik** (3); **alaitasunez eta** (10); **alaitasunez gainezka** (3); **alaitasunezko koroa** (3); **alaitasunezko oihu** (3); **alaitasunezko oihu bat** (3); **alaitasunezko oihuak** (5); **alaitasunezko oihuak eta** (3); **baten alaitasun** (3); **da alaitasun** (11); **den alaitasuna** (3); **dute alaitasun** (3); **espiritu alaitasuna** (6); **eta alaitasun** (46); **eta alaitasun handiz** (7); **eta alaitasuna** (39); **eta alaitasuna izango** (4); **eta alaitasunak** (5); **eta alaitasunaren** (9); **eta alaitasunean** (3); **eta alaitasunez** (13); **eta alaitasunezko** (6); **eta kanpoko alaitasun** (3); **halako alaitasun** (4); **izan da alaitasun** (3); **izanen da alaitasun** (3); **kanpoko alaitasun** (4); **kanpoko espiritu alaitasuna** (3); **poz alaitasunezko** (5); **poz alaitasunezko oihuak** (5); **poz eta alaitasun** (6); **poza eta alaitasuna** (7); **zoriona eta alaitasuna** (3)

---

alaitsu **1** *izond* alaitasunez betea.

Elkarrizketaren aurreneko minututik iruditzen zitzaien nonbait eta noizbait ezagutu zutela, antzina-antzinako haurtzaroan, aitaren etxean, jai **alaitsu** batean, ume-tropelaren jolas alaien artean. Jose Morales

Bai aste huntan ere berri **alaitsua**, Maider Salles eta Raphael Aguerre bikoteak egin baitiote ongi etorri lehen haur alabari. Herria

Ezertxo ere ez zen falta: musika, aberriratzen ziren mutilentzat martxa **alaitsuak**, baita ohorezko danborradak ere eroritakoen omenez. Txema Ramirez de la Piscina

Etxetik urruti zeudela zakur ttipiaren zaunka **alaitsuak** entzun zituzten. Gotzon Garate

Charliek eta biok gutun **alaitsuak** idazten genituen etxera -Charlieren gutunik gehienak Mollyrentzat ziren, eta nire guztiak amarentzat eta Big Joerentzat-. Mirentxu Larrañaga

Bart, gau izartsu, narean inork galdetu izan baligu ea gaur Eguzki **alaitsu** hau irtengo ote zen, gure erantzuna, zalantzarik gabe, izango zen: ez dakigu baina baietz dirudi. Imanol Unzurrunzaga

Eguerditan, 500 bazkaltiar bildu dira, betiko giro **alaitsuan**. Herria

Nongoa zara? -galdetu zion amonak Txon jaunari, doinu **alaitsuz**. Juan Kruz Igerabide

Gosea pasatzen omen genuen -nik neuk oroipenik **alaitsuenak** baino ez ditut ene Zegamako haurtzarotik-, baina propagandak Valentziako arroza jan behar zela esaten zuen, arraza indartzeko. Joxe Azurmendi

"Alaitsua" zela dio, eta "ipurtarin samarra". Berria - Euskal Herria

2 (adizlagun gisa)

Sendatu berriek ohi dutenez, **alaitsu** irten zen kalera. Jose Morales

-Afaria! -oihukatu zuen **alaitsu** Weldon andreak, zutik jartzen zelarik. Mirentxu Larrañaga

-Orduan -esan zion Gabrielek **alaitsu**-, edozein egunetan zure ezkontzara joan beharko dugu, egun hauetakoren batean zure mutilarekin ezkonduko zara eta. Irene Aldasoro

Probintziaren erdia dotore jantzitrik eta **alaitsu** paseatzen da zuhaitzen azpian. Jose Morales

Jansonek lasai eta are **alaitsu** igaro zuen arratsalde osoa. Jose Morales

Etxeko nagusia pozik eta **alaitsu** egoten zen beti; haren itxura ikusirik, jaun aberatsa zela esan zitekeen; esne-mamitan eta oparo bizi den gizonaren ibilera zuen. Jose Morales

Gregoryk baietz erantzun zion eta "maitemintzen ari zaren seinaleak dira horiek" erantsi zuen **alaitsu**. Iñaki Zabaleta

Ohi baino **alaitsuago** mintzatu da ELAko ordezkari Emilio Urreta Sestaoko ontziolari buruz. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alaitsu eta (4); **eta alaitsu** (4); **eta alaitsua** (5)

---

alaitu, alai(tu), alaitzen **1** da *ad* alaitasunez bete. ik **poztu**.

Zure erorketaz poztu eta hondamenaz **alaitu** baitzen, atsekabetu egingo da bera hondatua gertatzean. Elizen arteko biblia

Harryri bihotza **alaitu** zitzaion; Hagridekin egon behar baldin bazuten, ez zen hain txarra izango. Iñaki Mendiguren

Hagrid berehala agertu zen, oso erretxinduta, baina nor ziren ikustean berehala **alaitu** zitzaion aurpegia. Iñaki Mendiguren

Jauna nire alde, nire sendogarri: etsaien porrotaz **alaituko** naiz. Elizen arteko biblia

Ai baletor Siondik Israelen salbazioa! Jainkoak bere herriaren zoria aldatzean, poztuko da Jakob, **alaituko** Israel. Elizen arteko biblia

Alaitu zerbitzari honen bihotza: zuregana jasoa dut gogoa, Jauna. Elizen arteko biblia

Zuek, beraz, haien aitzindari zaretenok, poz zaitezte eta **alaitu**, eta ez uko egin santu haiei helaraziko diezuen eginkizuna betetzeari. Askoren artean

Saget andereñoak, eszena hark arras **alaiturik**, Rambuteau kalea zeharkatu zuen bizi-bizi, bere kapela beltzaren azpian. Karlos Zabala

Lisboako Setioaren Historiak, beste historiak, alegia, esaten du gurutzatuak hagitz **alaitu** zirela Portugaleko erregea bere proposamenak jakinaraztera bazetorrelako berria zabaldu zenean. Jon Alonso

Edozein hiritan sartzen zelarik, poztu egiten ziren elizgizonak, kanpaiak jotzen zituzten, gizonezkoak biziki **alaitzen** ziren eta emakumeak ere bai haiekin batera, haurrek txalo egiten zuten, eta maiz zuhaitz adarrak eskuetan eta salmoak kantatzen irteten zitzaizkion bidera. Askoren artean

Alaitzen eta bozkariatzen da eta pozez dantza egiten du, ikusten baitu bere egunetan Jainkoaren Eliza misterio berriz eta antzinako mirariz berritzen ari dela. Askoren artean

Baina lagun **alaitu** berriek alferrik botako diote soka bat ur-bazterretik, eta alferrik geratu dira han zain, sorbalda edo borrokak akituriko besoak une batez berriro azalduko ote diren: azken agerpena izan da. Jose Morales

Poz bedi zerua, **alaitu** lurra. Elizen arteko biblia

Larrialdi guztietatik libratu nau Jaunak, eta etsaien porrotaz **alaitzen** naiz. Elizen arteko biblia

Une batez begia alaitu egin baitzitzaion, nola marinelei bila dabiltzan kostaldea ikustean **alaitzen** zaien. Felipe Juaristi

Hala balitz ere, isildu hadi eta hator; ibarrak **alaitzen** hasiak dituk-eta atzo entzundako soinu-tresnak. Patxi Ezkiaga

2 du *ad*

Griotek kantatu egiten dute, musika jo, dantzatu, jaiak **alaitzen** dituzte, berezko alaitasuna dute. Berria - Kultura

Oso umoretsua zen, aldagela **alaitzen** zuen; taldekide bikaina zen. Berria - Kirola

Txinatar jainkoen itxura koloretsuek itsas hegia **alaitzen** zuten. Ramuntxo Etxeberri

-Zerk **alaitzen** zaitu horrenbeste? -galdetu zuen berak, harenganantz jiraturik eta hotz begiratuz. Jose Morales

Hemen geldituko zara, nire etxean, jaten eta edaten, eta nire alaba **alaitzen**, asko sufritu baitu. Jose Antonio Mujika

Denek zekiten Jexux trebea zela soinuarekin, musikaz jendea **alaitzeko** dohaina zuela, eta hori oso ondo hartzen zuten nagusiek. Xabier Etxabe

Irrikarkaila batek aurpegia bat-batean **alaitzen** diola, errairen dit bere bizia Frantsesen beztitzen eraman duela. Piarres Aintziart

Haren usainak sudurra **alaitzen** zidan eta eskuak dardarka jartzen. Juan Martin Elexpuru

Iruditu zitzaidan hura **alaitzearren** ari zela bera hain bizi. Bernardo Atxaga

Hango kuskus usainak gosea piztu dio, hango doinuen oihartzunak **alaitu**, hango argitasun epelak bozkarioa sentiarazi. Patxi Zubizarreta

Txitxikov, bere aldetik, barre egiten eta txantxetan aritzen ahalegintzen zen, baina, ahaleginak ahalegin, lagunen ziriek ez zuten batere **alaitu**. Jose Morales

Monika bi trago egin orduko hasi zen barrez eta **alaitu** egin zuen bikote bakartiz osatutako jangela hura. Joxean Agirre

Ez zegoen Madrilen bandera haiek **alaituko** zituen haize izpirik. Ramon Saizarbitoria

Kakotxipiri, zenbait aldiz joan baitzen gonbidatuta arizmenditarrengana bazkaltzera, harrigarria gertatzen zitzaion aita-amen eta ahizpen tristura, eta pixka bat **alaitu** nahi izan zituen. Koro Navarro

Eman diezaiogun geure arreba txitxarrari alde egiteko baimena, bere gorespen-kantuekin aski **alaitu** gaitu-eta orain arte. Askoren artean

Kontrako norabidean izu-laborrian ihesi zihoan jende piloa ikusteak ere ez zituen batere **alaitu**. Joanes Urkixo

Beste zerbait ere sartu dizut hemen, datorren ikasturtea Hogwartsen pixka bat **alaituko** dizuna. Iñaki Mendiguren

J. Rekexok bidalita jaso zuen azken gutunak arras **alaitu** zion eguna. Joxemari Iturralde

Xanpainaren ondotik Hungariako ardoa edan zuten, eta horrek indarberritu eta are gehiago **alaitu** zituen guztiak. Jose Morales

Printzesa ikusteak bihotza **alaitu** bazion ere, printzesa gal zezakeela pentsatzeak eztarria estutu eta begiak zauritzen baitzizkion. Felipe Juaristi

Guk **alaitu** egin dugu heriotza, lorez jantzi dugu, usain gozoz bildu, errazago bihurtu. Josu Zabaleta

Haren hainbat obren artean, Martxa hungariarraren pianorako egokipena jotzen zuen sarri eta kemen osoz, piezaren erritmo eta festa-giroaz hoteletik irten ere ezin zen jendearen aldarte aspertuak **alaiturik**. Anjel Lertxundi

Gogoeta horiek **alaiturik**, irriño bat pizten zait ezpainetan. *Elgar Oinka*-ko dantzari gazteak ere hor ziren bazterren **alaitzeko**. Filipe Bidart

Berrogeita bost urte eta ez lagunik, ez dirurik, hire egunak **alaitzeko**. Lopez de Arana

Zazpigarren egunean, ardoak **alaiturik**, Basti erreginaren bila bidali zituen Asuerok bere zerbitzuko zazpi morroi irenak. Jose Antonio Mujika

Ahuleziaren eraginez ohetik altxatu ezinik, bizitzaren itzulerak nahi gabe **alaiturik**, ahaztu egin zitzaion ate horren atzean beste ate batzuk zeudela, itxita. Jose Morales

Hariaren bestaldean Iñake ageri zaigu, ahots zakar horrek **alaiturik**. Xabier Mendiguren Elizegi

Bihurrikeria bat egiteko bat-bateko gogoa sentituz, loaren aukera hurbilak **alaiturik**, haur baten antzera burua okertu, ezpainak aurrerantz bildu eta zabal-zabal jarri zituen begiak, keinu horrekin harriduraren mailarik gorena adieraziz. Jose Morales

-A -esan zuen Woodek, aurpegia **alaituz** -. Iñaki Mendiguren

-Salan sartutakoan jotzen ari zineten doinua mister Haydnena zela iruditu zait -esan du Etxeberryk ardoak bihotza **alaiturik**, mihia askaturik. Felipe Juaristi

Donostiara 1853an inkognito etorri zen bidaiari ingeles hark [...], kontatzen du nola Konstituzio Plazan noiznahi sortzen ziren dantzaldiak, besterik gabe, banda militarrak jotzen zuen polka batek **alaituak**. Askoren artean

Emazte ederrak senarraren aurpegia **alaitzen** du eta ez dago gizonarentzat ezer desiragarriagorik. Elizen arteko biblia

Barruan alaitasuna zeukalako, baita unerik txarrenetan ere, errormeriak **alaitzen** zituen; eta inoiz ez zuen huts egiten, proletario zintzoa zelako, esanekoa. Pako Aristi

Begirada argiak bihotzondoa **alaitzen**, albiste pozgarriek indarra berritzen. Elizen arteko biblia

Gozatzeko da ogia, bizia **alaitzeko** ardoa, eta denetan laguntzeko dirua. Elizen arteko biblia

Zu babesten zaituen, zu **alaitzeko** mundu bat asmatzen duen aingerua. Antton Olano

Afalosteko ekitaldiak irauten duen denbora guztian, Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak ariko dira musikaz giroa **alaitzen**. Berria - Kultura

Begi-bistakoa zen, bestalde, bertan biltzen zen jendea maila handiko jendea zela, dirudunen aisialdia **alaitzeko** elkarte pribatua baitzen hura, toki dotore eta diskretua, oso garestia. Migel Angel Mintegi

Mirari txikiak gertatu egiten dira batzuetan; eguna **alaitzen** diguten zera horiek. Jokin Urain

3 (era burutua izen gisa)

Hiru haiei so, **alaitu** ederra hartzen zuten begiek. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alaitu da (3); **alaitu dituzte** (3); **alaitu dute** (5); **alaitu egin** (14); **alaitu egin dugu** (3); **alaitu egin zen** (3); **alaitu egiten** (12); **alaitu eta** (7); **alaitu zen** (4); **alaitu zion** (3); **alaitu ziren** (4); **alaitu zituen** (4); **alaitu zitzaion** (3); **alaitu zuen** (4); **alaitu zuten** (7); **alaitua izanen** (4); **alaitua izanen da** (4); **alaituko ditu** (7); **alaituko dituzte** (5); **alaituko du** (10); **alaituko duen** (3); **alaituko dute** (13); **alaituko naiz** (3); **alaiturik eta** (7); **alaitzeko eta** (3); **alaitzeko hor** (3); **alaitzeko moduko** (3); **alaitzen du** (4); **alaitzen du eta** (3); **alaitzen duen** (4); **alaitzen dute** (3); **alaitzen zituen** (4); **alaitzen zuela** (3); **alaitzen zuen** (3); **alaitzen zutela** (3); **alaitzen zuten** (3); **anaiek alaiturik** (4); **aperitifa alaitua** (3); **ardoak alaiturik** (3); **asko alaitu** (3); **aurpegia alaitu** (3); **bandak alaiturik** (7); **barhenne anaiek alaiturik** (3); **bat alaitu** (3); **bat alaitzeko** (3); **batek alaituko** (3); **batek alaituko du** (3); **batzuek alaiturik** (3); **bazterrak alaitu** (3); **bazterrak alaituko** (6); **bazterren alaitzea** (3); **bazterren alaitzeko** (18); **bihotza alaitu** (4); **bihotza alaitzen** (8); **bordatxok alaiturik** (4); **eko soinulariek alaiturik** (3); **ere alaitu** (3); **eta alaitu** (20); **eta alaitu egiten** (3); **eta alaitzen** (5); **gaiteroek alaiturik** (3); **gaitezen eta alaitu** (3); **giroa alaitzen** (4); **haurrek alaiturik** (3); **herria alaitzen** (3); **hiruak taldeak alaiturik** (4); **k alaiturik** (10); **kantariek alaiturik** (6); **kantuz taldeak alaiturik** (3); **kiki bordatxok alaiturik** (4); **kriolinak taldeak alaiturik** (4); **musika taldeak alaiturik** (3); **musikariek alaiturik** (9); **poteo alaitua** (3); **poztu eta alaitu** (3); **soinulariek alaiturik** (9); **sorginak bandak alaiturik** (4); **taldeak alaitu** (4); **taldeak alaituko** (10); **taldeak alaituko du** (5); **taldeak alaituko duen** (3); **taldeak alaiturik** (55); **taldeak alaiturik eta** (3); **trikitilariek alaiturik** (5); **txarangak alaiturik** (3)

---

alaitzaile *(orobat **alaitzale**)* **1** *iz* alaitzen duen pertsona.

Asteart aratsean zikiro jate, ezin hobea gazteriak nasaiki zerbitzatuz, Panpi Portugal bere lagunekin, **alaitzaile** paregabeak guziak xoratzen gintuela. Herria

Denek batean emaiten genituen, noiztenka agertzen zirela ere beste **alaitzaile** batzuk, hala nola Orbaizetako Urtzi trikititxalariak, beren nota airosekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Panpi Portugal eta Kiki Bordatxo **alaitzaileekin**. Herria

Igandean ekainaren 10 ean: 10.30 etan meza kaperan 13 etan bazkaria oihalezko aterbe azpian, UGUTZ eta Bidekoak **alaitzale**. Herria

Goresmenak gazteria **alaitzale** on eta sanoari eta berriz arte. Herria

2 *izond* alaitzen duena.

Kantuetara berriz jiteko, hor genuen, bazterren **alaitzaile**, Jean Michel Bedaxagar xuberotar kantari famatua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Meza ederra korala **alaitzaile**, ainitz adixkidez inguraturik. Herria

Tokiko langileak laguntzaile eta **alaitzale**, guziz zoriontsua iragan da egun hori. Herria

---

alaitzale ik **alaitzaile**.

---

alaitze *iz* alaitasunez betetzea.

Benetan da osasungarri poztea eta **alaitzea** izan duten ohoreagatik eta zoriagatik, lagunaren antzeko izanez eta honen urratsei hurbiletik jarraituz. Joan Mari Lekuona

Quenuk **alaitze** ahalegin handiak egiten zituen orduan, otordua animatu ahal izan gabe. Karlos Zabala

---

alaitzearren *adlag* alaitzeko.

Xariar, noski, ohartu egin zen, eta anaiaren barrena doi bat **alaitzearren**, ehizara gonbidatu zuen. Patxi Zubizarreta

Iruditu zitzaidan hura **alaitzearren** ari zela bera hain bizi. Bernardo Atxaga

Lerroen atzetiko bizitza **alaitzearren**, kontzertuak ematen zituzten, betiko Errusiaren erakusgarri izateaz gainera, Sobiet Batasun berriaren aitzindari ere baziren doinuak joz. Felipe Juaristi

---

alaizun ik **alabaizun**.

---

alaja *iz* bitxia.

Alain ihesi joan zen, kandela iraulirik, eraztun preziatu bat iruditu zitzaiona ateraz andre **alajari** hatzetik. Juan Garzia

---

alajaina *(orobat **alajaiña** g.er.) interj* mirespena edo harridura adierazteko erabiltzen den hitza, *alajainkoa*-ren leungarria.

-Alajaina -bota zuen Léak, gehiegizko muzin batez-. Jon Muñoz

-Bai, **alajaina** -ekin zion Anastasie andereñoak-, lehengoan Abade jaunak Rosencroix abade jaunari esan zion infernuko kondenatu bat dela; piztiak adoratzen dituela, Lutero bezalakoxe gorrotagarria omen den Pitagoras-edo baten antzera. Josu Zabaleta

Ez, **alajaina**; Adela zuhurregia eta orekatuegia zen, haren osotasun hura itxura huts izateko. Juan Kruz Igerabide

Ez bainintzen isilik eta apal-apal burua makurtzen duten horietakoa, ez **alajaina**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ondo eman zigun alamena bi hilabete haietan, **alajaina**. Iban Zaldua

Alajaina, handia da hura benetan! -Forma batzuk oso deigarri zitzaizkion-. Xabier Olarra

Alajaina, hain din bere gure adin honek arrastotik harago jotzea geure aburuetan, nola gauza arrunta baita gaztegoarengan aski zentzu ez izatea. Juan Garzia

-Ustekabeko deia, **alajaina**, hirea. Aingeru Epaltza

Xrekin topo egin dut Saint-Lazare geltokiaren aurrean, eta saiatu da, **alajaina**, nire atsegina lardaskatzen, frogatu nahi baitzidan nire soingainekoa irekiegia dela paparrean eta beste botoi bat erantsi beharko niokeela. Xabier Olarra

-Egia biribila, **alajaina**, Blount jauna, nik ere banuen neurri horien berri, eta, sinets iezadazu, nire lehengusina maiteak zer edo zer jakingo du bihar kontu horietaz. Karlos Zabala

Bere pottokan ibiltzera atera zen, zaldiak bota egin zuen eta, nork lagundu zion? Von Freische baroiak berak **alajaina**.-Oso adeitsua eta atsegina da -jarraitu zuen Txitxikovek-; eta esku-trebea, **alajaina**! Ramon Etxezarreta

Kota-uztaian zut, bekokia urdin eta luma-muturrak gorri; huraxe bai ikur biribila, **alajaina**, teknikolorezko estatubatuar filmen aurkezpen-fotogrametarako. Jon Muñoz

Kasualitate hutsa izan zen aurkikundea ere: nire lagun Joachim -zeinaren batere berririk ez nuela bai baitziren gutxienez hogei bat urte-, gizon hark, ezaguna ez ezik, anaia zuela, **alajaina**. Joxe Austin Arrieta

-Ez nekian horren aurrera henbilenik; Durrutiren hurrengoarekin, **alajaina**! Inazio Mujika Iraola

Arazoa ez zen nolanahikoa, **alajaina**! Migel Angel Mintegi

Arrazoiketaren konklusio razional posible batzuk aldeaurrez kriminalak dira **alajaina**! Joxe Azurmendi

Fina emakumea; fin-fina, **alajaina**! Mirentxu Larrañaga

Ezer gertatuko ez balitzaie bezala, **alajaina**! Mirentxu Larrañaga

Harro zegoen bere ideiaz: irudi geometrikoak margolanen gisa aurkeztea, **alajaina**! Jon Muñoz

-Nola aldatu diren gauzak, **alajaina**! -esan zuen izeba Emilyk. Lopez de Arana

Inongo herritan jaio ez eta hiriburuan hil, **alajaina**!: liburuaren historia unibertsalean sartzeko moduko alea eta beste inon ikusi ez dena, segurutik. Iñaki Segurola

Gazteak, badakizu: egonarri gutxi dute eta kemena gainezka: neurririk ez, **alajaina** . Anjel Lertxundi

Branka horrexen tamaina // ez da **broma** , alajaina! Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ez alajaina** (3)

---

alajainena *interj* alajaina, alajainkoa.

Alajainena ! Gaitzerdi, halere! Iragarpenak kale ematen bazien, bertsoaren merituarekin gozatu beharko zuen irakurleak. Pello Zabala

Bai, **alajainena** , baina, ene aburuz, nahiz jatorriz hemengo naizen eta sortzetik egina ekandu horretara, hobeki zaiok ohitura horri ohore egiten hautsiz ezen ez eutsiz. Juan Garzia

---

alajainetan *(orobat **alajaiñetan** g.er.) interj* alajaina.

Alajainetan ! Korrikalariak Imanolen inguruko airea urratu zuenean, azken honi izerdi usain fafara heldu zitzaion bete-betean sudurtzuloetara. Berria - Kultura

-Ongi jantzita oheratu beharko gaur, **alajainetan** ! -neure artean-. Txillardegi

Hi haiz -esan zuen Quenuk zezelka-, itxaropenik ez nian kasik, **alajainetan** ! Karlos Zabala

Eta nahastu egiten ditugu, arras, **alajainetan** ! Karlos Linazasoro

Alajaiñetan ! Txillardegi

---

alajainkoa *interj* zina, arnegua, desira edo harridura adierazteko erabiltzen den hitza. ik**alajaina**.

Alajainkoa ! Zein mardo eta freskoa, zein dotore eta distiratsua! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Alajainkoa ! Non sartu zara Elpides? Zer dira edari zital urrina dakarten hedoi dorpe hauek? Itxaro Borda

Mutil ona da Darby, **alajainkoa** !, zirin hutsa kontrakoa liokeena, eta gu jende gisatsuak gara, demonio! Juan Garzia

Hamar mila liburu, nik irakurriak denak, **alajainkoa** ! Fernando Rey

Banuen zerbaiten premia **alajainkoa** ! Itxaro Borda

Hori degenerazioaren mukurua da, **alajainkoa** ! Luis Elberdin

Eta bost militar nafartar gogorren fusilaketa burutu eta astebetera (astebetera, bai, **alajainkoa** !), otsailaren 25ean, Madrileko gobernuak ordainduta, sasi-bulego bitxi bat zabaldu zen Baionan. Txillardegi

Ertzainak nagusi kalean, **alajainkoa** ! Juan Luis Zabala

Alajainkoa , jauna, ederki emana, doinu onez eta taxu egokiz. Juan Garzia

Natural-natural aritu natzaio hizketan, **alajainkoa** . Mirentxu Larrañaga

Gauerako ez badinat mahai gainean dirua jartzen, **alajainkoa** , nigatik badaukan Weinerrekin joatea. Askoren artean

Egunkaria bola bat eginez tolestu dut, nire behatzak egunkariaren gainean gogorturik; tinta usaina, **alajainkoa** , nolako bizitasunez existitzen diren gaur gauzak. Monika Etxebarria

Eta, **Alajainkoa** eta nire arima, gezurretan ari da. Patxi Ezkiaga

Orain, erruz kostata, **alajainkoa** , bizitzeko garaia heldu zait. Txillardegi

Ez, **alajainkoa** , zu haren ondoan egon zinen, gizona bezala! Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alajainkoa eta** (3)

---

alajainkoka *adlag alajainkoa* esanez.

Alajainkoka eta aieneka, // erreuma du ahaztuko, // bidea itxiz, amorru etsiz // Satan desafiatuko. Xabier Olarra

· *(izen gisa)* Newgate-ra eraman zuten Ben Jonson **alajainkoka** bizian. Juan Garzia

---

alaka *adlag* aieneka.

Urdaila **alaka** nuen. Edorta Jimenez

---

alakalufe *iz* Txile eta Argentina hegoaldeko indigena etnia.

Inork begiratzen duenean ezkutatzen omen delako **alakalufeen** paradisua. Joseba Sarrionandia

---

alakan *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) adlag* zeihar edo eslaian ebakiriko ertza osatuz. ik **lantzerka**.

Gaur egun, berriz, **alakan** amaitzen dira, eta, horrela, alboko betelanaren ezpondara egokitzen dira, inposta baten laguntzaz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azalera ia karratu batean, hiru solairuko eraikina altxatu zuen, lau pisu bulegoak zeuden **alakan** , urte batzuk lehenago Belda eta Uriarteren eta Aurrera enpresen proposamenetako administrazio-gorputzean garatutako bokazio urbanoa berreskuratuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

alakatu *(corpusean ez dago; ETCn **78** agerraldi) izond* piezez mintzatuz, ertzen bat janda edo leundua duena. ik**ahopildu**.

118koak 26 x 18 metroko oinplano angeluzuzenaren forma du, ertz **alakatuekin** eta saihetseko tiroak botatzeko irtenuneak bi aldetan. ETC-prentsa

Fenomeno hori saihesteko, orratzak ahalik eta diametrorik txikiena izatea komeni da, eta 45º baino gutxiagoko ertz **alakatu** izatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Batu beharreko elementuetariko batek ertz **alakatu** bat duenean egiten den arteka-soldadura. ETC-zientzia, zuzenbidea

Honek, ilargixkadun kanoi-gangak jarri zizkion eraikinari eta kupulari eusgarri sendotasuna emteko, Italian XVI. mendean erabilitako formula manieristei jarraituz, pilareak **alakatu** egin zituen. ETC-entziklopedia

Sei arkibolta ditu eta txaranbeldua da, janben antzera eskailera moduan; baketa handiko zutabe sendoetan kokatzen dira, arkuen abiada osoa etenik gabe zeharkatzen duen xake-itxurako erlaitz **alakatu** deigarri batek koroatzen duelarik. ETC-entziklopedia

Iparraldeko altxaeran, teilatu-hegal handia nabarmentzen da, eta horren hodietako batzuek (erdikoak eta horren eskuinaldera dagoenak) ertz **alakatu** zakarrak eta albo-koskadun tantakinak dituzte. ETC-entziklopedia

Era berean, kontrol edo atezaintza funtzioak betetzen zituen gorputz **alakatu** bat agertzen da eta, horri lotuta, zutabe bakar batean oinarritutako estaldura zapal bat, izkina zirkulu biribilduak dituena. ETC-entziklopedia

Mentua eta mentu-oina **alakatu** ondoren, biei mihia sortu eta bata bestean ahokatu. Sinplea eta konplexua izan daiteke ETC-entziklopedia

Bere oinplanoa laukiluze-formakoa da, izkina **alakatu** batekin. ETC-entziklopedia

---

alako ik **halako**.

---

alaman[1] *iz* germaniar tribua, III._mendean Rhin ibaiaren inguruan kokatu zena.

Orduan, inguruan zituenekin borrokan hasi zen: betiere lurralde eta ondasun gehiagoren gosean, iparraldeko eta ekialdeko **alaman**, bavariar eta saxoien aurka aritu zen; hego aldetik, berriz, Eudon Handiaren Akitaniako eta Proventzako lurraldeak harrapatzen saiatu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

alaman[2] ik **aleman**.

---

alambre ik **alanbre**.

---

alamen **1** *iz* hizketaldi aspergarri edo gogaikarria. *(corpusean eman aditzarekin soilik)*

Ondo eman zigun **alamena** bi hilabete haietan, alajaina. Iban Zaldua

Hark ere, ordea, eta nire harridurarako, ez zuen deus esan, eta hasieran, eskertu nion ez hasi izana, espero zitekeen bezala, "ikusten, esaten nizun nik" eta antzeko adierazpenekin arrazoi zuelako **alamena** ematen. Ramon Saizarbitoria

Parashak esan dit: "Gobernadoreordearen emaztea", eta nik esan diot: "Berriro etorri zaigu tuntun hori **alamena** ematera", eta esatekotan egon naiz ez naizela etxean. Jose Morales

Kristoren **alamena** eman nioan. Fernando Morillo

Beti ari dituk ezagutzen ez dugun, inoiz ikusi ez dugun eta bost axola zaigun jende berriaz **alamena** ematen. Antton Olano

2 ***alamena eman***

Baina gehiagorik ekartzen badidak, ez diat hartuko, nahiz eta hiru aste egon **alamena ematen**. Jose Morales

Ordukoan ere, gainerakoak borrokatzen ziren bitartean nik etxean lasai egoteko lotsarik ez nuela, gizona izan nahiko zukeela berak nire ordez kalera ateratzeko eta antzekoekin **alamena eman** zidalako, halabeharrez hartu nuen kalerako bidea. Ramon Saizarbitoria

Koñaka eskatu du, eta kopari eta maletari eutsita berehala hurbildu zaio tabernariari **alamena ematera**. Javi Cillero

Nire zokondorantz egin nuen, laguna orpoetan nuela, afari legea elkarrekin egin genezan **alamena ematen**. Edorta Jimenez

Edurne iritsi baino lehenagoko kontu bat zen, eta, izan ere, urteak zeramatzaten kasuarekin, jaramon berezirik egin gabe, baina koadrilako pare bat tipo noizean behin komisariara agertu eta **alamena ematen** zietenez, kasua berrirekitzearen plantak egiten zituzten. Iban Zaldua

Kristoren **alamena eman** nioan. Fernando Morillo

Beti ari dituk ezagutzen ez dugun, inoiz ikusi ez dugun eta bost axola zaigun jende berriaz **alamena ematen**. Antton Olano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alamena eman** (3); **alamena ematen** (6); **alamena ematera** (3)

---

alamendrena *interj* **

Ardanzopak baino gozoago zagok hau, bai **alamendrena**! Anjel Lertxundi

---

alan ik **alha 3**.

---

alanbike *iz* destilagailua, batez ere likido alkoholdunena.

Alanbike bat bailitzan, Espainiak azken mendean izandako era guztietako aginteen arrastoa gordetzen zuen bere baitan Leialtasunaren Plazako etxetzarrak. Hasier Etxeberria

---

alanbrada *iz* burdin hesia, txarrantxa.

Haiek, guk ez bezala, lur-sail zabala zuten atzealdean, oilategiko **alanbradan** hasi eta ibai ertzeko lertxundiraino hedatzen zena. Berria - Kultura

Frontoi izkinako zulotik **alanbrada** pasatu eta, hango sasi eta eskonbroen artean, laster egin zen zirkulua Goioren inguruan, bera ailegatu baitzen lehenengo. Joseba Sarrionandia

---

alanbre *(orobat **alambre** g.er.)* **1** *iz* burdin haria.

Abdulen aurrean makurturik, Sergiok **alanbrea** sartu zuen sarrailaren begitik. Harkaitz Cano

Yi jaunak kaiola zintzilik ipini zuen, sabaian zegoen **alanbre** batetik. Juan Kruz Igerabide

Agurraren Otoitzak esaten ari zen bat, beste bat Jakintzaren Hastapena irakurtzen, hirugarrena **alanbre** batez pipa garbitzen, liburu sakratu bat adabatzen laugarrena. Koro Navarro

Ate itxien kanpoaldean arropa zegoen **alanbreetan** zintzilikatua. Koro Navarro

Alanbreen azpian hormaren kontra-kontra jarri eta gorantza jaurti du oraingoan, txoria bera jotzera, edo akatu edo askatu! Jokin Urain

Alanbrez inguratua zeukaten hondartzako barrutia, eta bozgorailuz ematen zizkieten bisitetarako deiak eta bestelako aginduak. Jokin Urain

Alanbrezko hariak, hesolatik hesolara kateatuz herri batetik bestera ipini zituztenean, jendeak ez zuen sinesten hari haren barrutik hitzak joan behar zuenik, eta hala zioten: horiek sorginkeriak zirela. Pako Aristi

Beti aurrerantz patio berrietatik, ate berrietatik, txarrantxa eta **alanbrezko** hesi berrietatik. Urtzi Urrutikoetxea

Alanbrezko kaiola txiki batean zeraman sagua. Karlos Zabala

Uenelek "oliba koloreko larrua" eta **"alanbre** gisako ileak" dituela dio Bild-ek. Berria - Kultura

· Bertsolariak elkarren etsai edo jotzaile moduan erakusten bagaituzte ere, urduritasun horrekin gauden unean elkarren babes izaten gara, publikoaren aurrean, **alanbrean**. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hurritz lerro baten ondora iritsita hiru **alanbre** paralelo topatu ditu. Pello Lizarralde

Buruko mina zuen; begitandu zitzaion burua **alanbre** gori batez inguratua zuela. Lopez de Arana

Hiriko mapan, berdeunez bereizita, hamar kanposantu-eremu baino gehiago agertzen dira, gehienak Brooklyn eta Queens auzoetan, eta haietan erlijio bakoitzak bere hilerri propioa izaten du, **alanbre** arantzadunez eta hesi sendoz babestua. Iñaki Zabaleta

Herio zelai guzia **alanbre** xixtadunez inguratua zen. Eneko Bidegain

Gureaganik berexia zen bi **alanbre** lerro ziztadunez. Marzel Etxehandi

Bizpahiru gizon eskapatu omen ziren aire eta argi emaiten zigun leiho ttipi **alanbre** ziztadunez hetsitik. Marzel Etxehandi

Pertxazko **alanbrea** lepoaren inguruan lotu zion Martak, Patakik arnasa hartzeari utzi zion arte. Harkaitz Cano

Bazirudien nerbio bakoitza tente jarritako **alanbre** bihurri bat zela. Jose Morales

Bere esaldiek, batez ere testu amaierakoek, tenkatutako **alanbrearen** zorroztasuna dute. Itziar Otegi

Ezker zangoa beste aldera pasa ondoren bi besoak gurutzatu eta eskuak erdiko **alanbrearen** arantzen artean jarri ditu. Pello Lizarralde

Panpinak jarri baitzituzten hildakoen eserlekuetan, txotxongiloak, kartoi-harrizko tigreak edo putreak edota salamandrak, igeltsuzko giza-irudiak, pelutxezko hartzak, granitozko edo alabastrozko giza-enborrak, marmol txuriko emakume biluzi halamoduz estaliak, altzairuzko lehoi-inurriak eta mantikorak, zementuzko zikoinak, zurezko neskato abstraktuak eta **alanbre** herdoilduz egindako mutikote geometrikoak. Karlos Linazasoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Most Holy Trinity Cemetery zen, trenbidearen ondoan, **alanbre**-sare batek bereizia. Iñaki Zabaleta

Alanbre hesiak eta kontzentrazio esparruetako garitak diruditen etxola itxiak ere badira zubiaren alde bietan. Harkaitz Cano

Kontrol Lerroa aprobetxatuta, **alanbre** hesi bikoitza eraikitzen hasi zen India iaz. Berria - Mundua

Zuloaren tapakia altxatzean, bihotz apurtzear, ikusi zuen den dena han zegoela, bi urte utzi bezala: ekialdeko merkatariei erosi pistolak, roketa eta airekoen kontrako jaurtigailuak, dinamita abarrak, artisau bonbak zartarazteko detonagailuak, premiazko hari, bisa eta **alanbre** puskak oro. Itxaro Borda

Ez dago sarrailarik edo kisketarik, soilik **alanbre** txibista bat iltze batean katigatzeko. Anton Garikano

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Imre Kertész Nobel Saridun berriak txarrantxa-**alanbrez** eta zaintza-dorrez inguratutako oroitzapenen artetik idazten duen bezala. Hasier Etxeberria

5 ***alanbre hesi*** *(orobat* ***alanbrehesi*** *g.er. eta* ***alanbresi*** *g.er.)* alanbrez eginiko hesi modukoa, alanbrezko hesia.

Alanbre hesiak eta kontzentrazio esparruetako garitak diruditen etxola itxiak ere badira zubiaren alde bietan. Harkaitz Cano

Egun hauetan **alanbre hesi** altuagoa ipintzen ari dira Ceuta eta Melillako mugetan, afrikarrik ez dadin igaro espainiar koloniara. Jokin Urain

Kontrol Lerroa aprobetxatuta, **alanbre hesi** bikoitza eraikitzen hasi zen India iaz. Berria - Mundua

Nolanahi jasotako **alanbre-hesi** batek seinalatzen du Lucyren eta Petrusen jabetzen arteko muga. Oskar Arana

Polizia zain zuten arren, **alanbre-hesia** moztu eta barrura sartzea erelortu zuten hainbat ekintzailek. Berria - Mundua

Má?sa hasieratik zegoen lanean trenetan, ni bezalaxe; elkarren aurrean geunden, bion artean **alanbrehesi** altu bat zegoen, oinen ondoan miniopoto bana geneukan, bakoitzak bere pintzela eta parez pare ginela pintzela sartzen genuen alanbreen artean, **alanbrehesia** margotzen genuen, bakoitzak bere aldetik, beti bekoz beko, guztira lau kilometro luze zen hesi hura; bost hilabete eman genituen horrela egunero elkarren aurrean eta Má?sak eta biok dena kontatu genion elkarri, baina **alanbrehesia** gure artean zen beti. Fernando Rey

Behin, berriketan ari ginela, artzain zakur moduko bat sartu zen **alanbresian** barrura. Jokin Urain

Kartzelako patioan, Pedrok zeru altuan pasatzen ziren usoak eta patioko hormetako **alanbre-hesietan** pausatu eta berriz hegan egiten zuten kardantxiloak ikusten zituen. Jon Maia

6 ***alanbre sare*** *(orobat* ***alanbresare****)* alanbrez eginiko sarea, alanbrezko sarea.

Abeltegiko **alanbre** sarea hautsez eta amaraunez betea zegoen, olana grisez estalita zegoela iruditzeraino. Karlos Zabala

Merkatuan, orain, batzuek zin egiten zuten poliziari saldua zegoela; besteek adierazten zuten gurinen sotoan ikusia zutela, trastetegietako **alanbre** sareak zulatu nahian, pospolo piztuak barrura botatzeko. Karlos Zabala

Alanbresare egituran, jende posturan, behi bat egin du Patricyan plastikalariak, ttottolua zeruari so ausnarketan ote! Herria

7 ***alanbre arantzadun***

Haietan erlijio bakoitzak bere hilerri propioa izaten du, **alanbre arantzadunez** eta hesi sendoz babestua. Iñaki Zabaleta

Italiarrentzako kontzentrazio eremu batean bizi zen, inguru guzti-guztian **alanbre arantzaduna** zuten kasernatzarrak ziren, hiritik oso urruti. Fernando Rey

Arrebak sonanbulo-urratsez aurrera nola egiten zuen begira geratu zen Jonathan: begitartea barrurantz erabat bildua; estu-estu sorbaldak, **alanbre arantzadunezko** soinaren gainean zut. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alanbre batekin (3); **alanbre batetik** (3); **alanbre hesi** (3); **alanbre sarea** (4); **eta alanbre** (8); **eta alanbrezko** (5)

---

alanbrehesi ik **alanbre 5**.

---

alanbresare ik **alanbre 6**.

---

alanbresi ik **alanbre 5**.

---

alanbrespino *iz* alanbre arantzaduna.

Joder! Hauek ez dituk ibiliko, gainerantzean, joan hona, joan hara, bazterrak **alanbrespinoarekin** josita zaudek! Pablo Sastre

---

alanbreztatu *izond* alanbrez hornitua.

Hiriburuko presondegian sartu zuten, harrizko horma garai **alanbreztatuak** zituen antzinako presondegian, hain hotza ez balitz, infernua zatekeen. Jon Maia

---

alandar *izond/iz* txakur arraza.

Baita Tirante adoretsuak **alandarrekin** egindako borroka ere: "Nerebixigarri" neskatxaren xuxperkeriak eta "Betigeldi" alargunaren leunkeriak, eta enperatriz anderea bere ezkutari Hipolitorekin maitemindua. Patxi Ezkiaga

---

alanina *(corpusean ez dago; ETCn **131** agerraldi) iz* proteinak sintetizatzeko gorputzak erabiltzen duen aminoazido ez-esentziala.

Alanina proteinen osagaia den 20 aminoazido ez esentzialetako bat da. ETC-entziklopedia

Glizina, **alanina**, azido aspartiko eta azido glutamikoa bezalako aminoazidoak eratu ziren esperimentu horretan. ETC-entziklopedia

Esaterako, 6 kodoik leuzina aminoazidoa kodetzen dute, eta 4k **alanina** aminoazidoa, besteak beste. ETC-entziklopedia

Tamainaz hurrengo denari **alanina** deritza, eta metilo talde bat du (CH3) albo-kate gisa. ETC-literatura, saiakera

Bata, hiperfenil alaninemien proba da, nagusiki fenilzetonuria edo PKU gaixotasuna detektatzeko, (fenila **alaninaren** kontzentrazioaren neurketa) eta, bestea, hipotiroidismoa detektatzeko (TSH3 hormonaren kontzentrazioaren neurketa). ETC-prentsa

Adibidez, **alanina** naturala (izen sistematikoa: azido 2-aminopropanoikoa) forma bakarrean aurkitu daitekeen aminoazido ugaria da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Era berean, aminoazido neutroen garraioan parte hartzen duen proteina batek berdin-berdin mugi ditzake glizina, **alanina** eta balina, baina ez du azido aspartikorik edo lisinarik onartuko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horien artean, **alanina** aminotransferasa (ALT) entzimaren mailak saguak tratatu aurretik aztertzean (6 aste), ez ziren aldaketa adierazgarririk azaldu taldeen artean. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

alano *iz* erbitxatxurra eta dogoa gurutzatzearen ondoriozko txakurra, buru eta gorputz handikoa.

Hobekien ezagutzen ditugunen gainean baizik ez mintzatzeagatik, hau da, hortik datozen aitoren seme portugaldarren gainean, ezin artatsuago zaintzen dituzte euren dobazakurrak eta **alanoak**, eurekin lo egitea atsegin izateraino, beren ohaideekin baino areago. Jon Alonso

---

alapen *iz* alatzea.

Topatu baldin badu, irteera, **alapena**, modua aurkituko dut... pentsatzeko gauza naizenean. Sonia Gonzalez

---

alapide *(orobat **alhapide**)* **1** *iz ipar* bazkalekua, larrea.

Sekulan ez duzu aurkituko pilota lekurik artzain baten saroia edo **alapidearen** erdian, baina berex edo bazterrean. Iepoak beti mugak direla artzainen **alapideen** artean, herrien arteko mugak edo berdin probintzien mugak. Herria

Neguan aldiz, behererat datoz, bertze **alapide** batzu aurkiturik, 2500 liberako bat hektaraka. Herria

Funtsean, kabalak jautsiak edo jausten ari dira gain horietako **alapidetarik**, ilabete baten abantzuarekin. Herria

2 irud/hed

Bai artzain onaren gisa, **alapidez alapide** segi zure lana eta, nahi duzun arte jaun erretora! Herria

Goiko **alapidetan**, Artzain onak errezebi dezala. Herria

---

alarau *(orobat **alaru** g.er.)* **1** *iz* oinazezko edo amorruzko oihu ozena.

Orduan, ilunpetan, **alarau** bat, ulu bat entzun zuten; minez zegoen txakur batena. Iñaki Mendiguren

Otoitza bukaturik, almuedanoa jaisteko prestatzen da, eta bat-batean behetik **alarau** bat eraikitzen da, hain ordenarik gabea eta harrigarria non itsuak uste baitu, lehenbizi, dorrea amiltzen ari dela, gero kristau madarikatuek harresien aurkako erasoa hasi dutela, eta azkenik antzematen du garrasiek bozkarioa adierazten dutela. Jon Alonso

Itsasoaren dei hura itsas lamien kantaren antzekoa zen: ederra, erakargarria, baina zoritxarraren **alarauaren** modukoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

O! Ai! Ene! Aiei! Helas! Doluko auhenak, **alarauak**, arrangura adierazpen urragarriak Ezin morfinak Kaganskiren **alarauak** mutuarazi. Iñaki Arranz

Halako batean Lisboako lehenengo hartan aditu nituen **alarauak** eta aieneak berriro aditu uste izan nituen. Edorta Jimenez

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eta ez zen **alarau** hutsa izan. Edorta Jimenez

Orkoa kikildu egin zen une batez, baina berehala **alarau** beldurgarri batekin buelta erdia egin eta lehengo bidetik abiatu zen ihesean. Agustin Otsoa

Alarau ikaragarria aditu zen, ontziaren beheko bizkarretik gora etorria. Edorta Jimenez

Ihes egiten dut, haren **alarau** lazgarriak belarrietan durundika. Eskarne Mujika

Gauez landatan bidaztiei dardara sartzen dieten **alarau** lazgarri horietako bat bota zuen. Josu Zabaleta

Alarau motelduak, Herioren hatsaren hotzaz kexatzen diren gizakumeenak. Edorta Jimenez

François-ek pozezko **alarau** bat bota zuen orduan. Josu Zabaleta

Bi paper zatiok eragin mirakuluzkoa eduki zuten; salbajeek beren jarrera erasokorra bertan behera utzi eta bozkariozko **alarauak** bota zituzten, matxeteak beren zorroetan gordetzen zituzten bitartean. Jon Alonso

Etxera itzuli eta ikusten zuenean artean lehenago han utzitako jendeak bertan segitzen zuela eztabaidan, etxeko sarrerako kutxan eserita edo mahai gainetara igota, suminezko **alarau** bat botatzen zuen, luzea, eztarrikoa, inortxok kasu egiten ez zion **alaraua**. Fernando Rey

3

Zakur **alarauek** (urubiek, auriek, uluek) nobedade txarra. Gotzon Garate

4 ***alarau egin***

-Kanpora, irten hemendik! -Basurtokoak **alarau egin** zuen, arnasak huts egin behar ziolarik. **Alarau eginez**, itzuli, zaldi gainera salto batez igo eta arrapaladan abiatu zen Cirith Gorgorrerantz. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alarau bat** (6)

---

alarauka *adlag* alarau eginez.

Bi emakume zoratuak zakurrarekin batera **alarauka** hasi ziren, biak. Josu Zabaleta

Alarauka datorkizue, eskuak goitituak. Xabier Montoia

Harryk Fangen hotsak ere entzuten zituen hirugarren munstro batengandik libratu nahian, ozen **alarauka**, baina Harryk ezingo zuen deiadar egin, nahi izan balu ere. Iñaki Mendiguren

"Dena kontrolpean!", dio **alarauka** Jon Spencer jaunak, eta konturatzen zara hobe zukeela Coldcut bikotearekin lehenago topo egin izan balu DJ Shadow-rekin egindako lan behartu hura egin baino. Berria - Kultura

---

alarazi, alaraz(i), alarazten du *ad* alatzera behartu.

Bost urte iraun duen ikerketa batean, arto anzilatu eta sojadun jangai osagailu horiek jateko ordez, pentzean **alarazi** izan diren behi batzu hamabost hazkuntza tokitan jarraikiak izan omen dira. Herria

---

alarde *iz* jendaurreko erakusketa.

Pozik zegoen, alde batetik, famaren eskailerak gora eraman ninduelako, baina, bestetik, **alarde** hura guztia ez zihoakion batere. Joan Mari Irigoien

Berdintasunerako Legeak ez du aldaketarik eragingo **alardean**. Berria - Harian

Txostenaren arabera, EAEko Berdintasunerako Legeak, **alardeei** dagokionez, ez du aldatu legea onartu aurretik zegoen esparru juridikoa. Berria - Harian

Azken 10 urteotan gertatu den bezala, bi **alardeek** desfilatu zuten atzo Irungo kaleetatik. Berria - Harian

Alardeak ekitaldi publiko gisa antolatzeari utzi eta **alardeak** elkarte pribatuen ardurapean utzi zituzten, emakumeei soldadu modura parte hartzea eragozten dutenen esku. Berria - Harian

EAEko Arartekoak egin duen txostenaren arabera, emakumeei gizonen pare parte hartzen uzten ez dieten **alardeak** eta udalen baimenak legearen aurkakoak dira. Berria - Harian

Bestalde, horri esaten zaio, betiko **alarde** honetan, "ohean ona" izatea: txorta-laguna errenditzea, menderatzea. Iñaki Segurola

Jaizkibel konpainiak azpimarratu duenez, azkeneko urteotan "betiko **alardea**" aldarrikatu izan dute, eta aurten "herriaren **alardearen** alde" agertu dira. Berria - Harian

Bidasoaldeko **Alardeen** auzien bilakaerari buruzko balorazioa. Berria - Harian

Alarde mistoa Irungo Kale Nagusian sartzearekin batera **alarde** tradizionalaren aldekoak sutu egin ziren. Berria - Harian

Gazte guztiek lanpostu baten jabe -mirabe- izateko duten eskubidearen alde; emakumeek munduko **alarde** armadun guztietan ateratzeko duten eskubidearen alde; pobreek zernahi erosteko duten eskubidearen alde; munduko haur guztiek eguna eskolan pasatzeko duten eskubidearen alde; beltzek estatuaren kontura beren azala zuritzeko duten eskubidearen alde, eta abar. Iñaki Segurola

Aitzitik ere bai, ordea: gizaki orok du egunerokotasuna **alarde** betilunik gabe bizitzeko dohaina. Anjel Lertxundi

Eta, begira, **alarde** superatu horren ordez, antola ezazue, nafar arnegatu horiek, gerra operistiko bat. Patziku Perurena

-Itzaltzak musika puta hori! -agindu dio Natxok zakar, oratoria **alarde** batean. Patxi Iturritegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **alarde bat** (3); **alarde ez** (3); **alarde mistoa** (6); **alarde mistoak** (9); **alarde mistoan** (4); **alarde mistoan parte** (4); **alarde mistoaren** (6); **alarde mistoko** (5); **alarde publiko** (5); **alarde publiko eta** (3); **alarde publikoa** (7); **alarde publikoa eta** (3); **alarde tradizionala** (11); **alarde tradizionalak** (4); **alarde tradizionalaren** (11); **alarde tradizionalaren aldekoek** (4); **alarde tradizionalean** (3); **alarde tradizionaleko** (3); **alardea antolatzeko** (3); **alardea baztertzailea** (3); **alardea edo** (3); **alardean parte** (12); **alardean parte hartzeko** (3); **alardean parte hartzen** (4); **alardearen alde** (4); **alardeari buruz** (3); **alardeen inguruko** (4); **beste alarde** (3); **betiko alardea** (4); **betiko alardearen** (3); **da alarde** (4); **dituen alardea** (3); **duen alardea** (4); **dute alarde** (3); **emakumeak alardean** (6); **emakumeek alardean** (3); **eta alarde** (7); **ez duen alardea** (4); **hondarribiko alardea** (5); **hondarribiko alardean** (8); **hondarribiko alardearen** (4); **irungo alarde** (4); **irungo alardea** (10); **udal alarde** (3); **zen alarde** (3); **zuten alarde** (3)

---

alardeatu, alardea(tu), alardeatzen du *ad* arrandia egin.

Ez duzue **alardeatzeko** motiborik batere. Patziku Perurena

---

alargun **1** *izond* ezkontidea hil eta gero, berriro ezkondu ez dena.

Neftaliren leinuko emakume **alargun** baten semea zen; aita, berriz, Tiroko brontzegin bat izan zuen. Elizen arteko biblia

Andre **alargun** bat ezagutzen zuen Cuvier kalean, Jardin des Plantesetik hurbil. Karlos Zabala

Alchonon ganbara batean bizi zen, gorra eta erdi itsua zen atso **alargun** baten etxean. Koro Navarro

Herriko sarrerara hurbildu zenean, hildako bat, ama **alargun** baten seme bakarra, zeramaten lur ematera. Elizen arteko biblia

Emakume **alargun** guztiak negarrez hurbildu zitzaizkion eta Dorkas zenak egin ohi zizkien jantzi eta soingainekoak erakutsi zizkioten. Elizen arteko biblia

Hiriko atetik sartzen ari zela, emakume **alargun** bat ikusi zuen, egur biltzen. Jose Antonio Mujika

Ezkongabeei eta andre **alargunei**, dauden egoeran jarraitzea on dutela esaten diet, ni bezala. Elizen arteko biblia

Herriko dendari **alargun** bat negarrez hasi ohi zen zerbait erostera joaten nintzaion bakoitzean, bere senar hil berria gogora ekartzen niolako. Joxean Agirre

Zeren doña Lidia emazteki **alargun** bihozbera bat baitzen, buruz ongi jantzia eta bere buruaren jabea. Joan Mari Irigoien

2 *iz* ezkontidea hil eta gero, berriro ezkondu ez den pertsona.

-Zergatik ezkondu behar duzu **alargun** batekin? Koro Navarro

Jauna, ene Jainkoa, ni bere etxean hartu nauen **alargun** hau ere atsekabetu egin behar al duzu, semea hilaraziz? Elizen arteko biblia

Jo itzazu zeure haserreaz eta emadazu niri, **alargun** honi, pentsatu dudana neure eskuz betetzeko ahalmena. Elizen arteko biblia

Harrapakinetarik zati bat pertsekuzioa jasan zutenen artean banatu zuten, beste zati bat **alargun** eta umezurtzen artean; gainerakoa beren eta beren seme-alaben artean. Elizen arteko biblia

Hurbildu zitzaiola Brigida emakume pertxentari, hiru aldiz ezkondu eta hiru aldiz **alargun** zenari. Felipe Juaristi

Ai ene! **Alargun** nauzu, hila dut senarra. Elizen arteko biblia

Hark hil zuen, eta gero istorio guztia asmatu, jendaurrean hiltzaile ez, baina **alargun** ero urrikalgarri agertzeko.Frantzia guztiak zekien errege hilaren **alargun** Katalina Medicikoak -Karlos IX.aren amak- bakerik ez zuela izanen Montgommeryren burua saski batera bildua ikusi arte. Martin Anso

Behekoan, sukaldea zegoen eta, sukaldearen ondoan, gela batzuk, norat biltzen baitziren etxeko neskameak, guztiak ezkongai edo **alargun**, jauregian bizi ziren bertze sehiak oro bezala. Joan Mari Irigoien

Normandiar ederra **alarguntzat** jotzen zuten Méhudindarren senide eta adiskideen artean. Karlos Zabala

3 (izena izenondoekin)

Alargun deskontsolatuaren papera hartu eta barrez lehertzen hasi da Hector. Harkaitz Cano

Alargun alaia eta dibortziatu zoriontsua. Bazen beste bat, Angela bat, armadako mediku baten **alargun** gaztea, zaldi-lasterketekin txoratuta zegoena. Oskar Arana

Hélène Daudet, haren **alargun** gaztea, aztarna guztien kontra, bera ere senarrak beti eutsi zion ezezkoari irmo atxikitzen zitzaiona, baita epaileak ADNaren azterketaren bidez egia zientifikoki argitzeko gorpua hilobitik ateratzea agindu ondoren ere. Ramon Saizarbitoria

Aulki bat, arren, aulki bat **alargun** gaixo honentzat! Josu Zabaleta

Zergatik, eta justizia maitatzeagatik, kontzientzia garbi edukitzeagatik, **alargun** babesgabeei eta umezurtz errukarriei eskua luzatzeagatik! Jose Morales

Berrogei eta koska zituen emakumea, ezkongabe edo **alargun** bakartia, hitzordu itsuetan bere bizitzako gizonezkoa aurkitzeko esperantza oraindik galdu ez zuen horietakoa. Harkaitz Cano

Sasoi hartan, asmoa hartu zuen, nonbait, senar **alargun** berriaren begiko bihurtu eta hildakoaren lekuaz jabetzeko, artean bero egonik ere. Karlos Zabala

Ikusi zuen emakume **alargun** behartsu bat ere bi sos botatzen. Elizen arteko biblia

Orain lagun min eta aholkulari, **alargun** beroen amorante eta arriskuan zeuden damatxoak salbatzen zituen zaldun errari bihurturik. Oskar Arana

Esan beharrik ez dago, **alargun** zolia berehala ohartu zen zer zen egiaz margolan hura. Oskar Arana

Azkenekoa da haren **alargun** ofiziala gaur egun. Karlos Zabala

Zenbat **alargun** -adibidez- adineko ezagutu ditudan eta ezagutzen ditudan gaur, bizitza guztian maitatzen ari izan direnak, senarra eta seme-alabak; eta dirautenak ilobak eta bilobak ere maitatzen, auzokoak eta, esate baterako, inguruko guztiak, gehienetan irribarrez. Jenaro Garate

Alargun benetan heziak, helduak, ni baino, behintzat, askoz kultuagoak, bestelako adimenaren jakindurietan urritsuak izan arren. Jenaro Garate

Andre hau, **alargun** oso espirituala eta Jainkoari emana, Erroma osoko nobleen eta aberatsenetakoa zen. Askoren artean

Denbora luzea duk **Alargun** Beltzaz ezer entzun ez dudala. Harkaitz Cano

Zeren doña Lidia emazteki **alargun** bihozbera bat baitzen, Joan Mari Irigoien

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hori oso ondo egingo nuela esan zidaten, dagoeneko **alargun** aire bat hartzen hasia nengoela-eta. Joxean Agirre

Nire **alargun** bizitzaz galdetuko zidan eta esku artean zuen nobelaz xehetasunak eskatuko nizkion nik. Joxean Agirre

Alarguna behar du; **alargun** -eskuak ditu. Unai Elorriaga

Ea ez nintzen animatzen astebetetxo eguzkitara **alargun** elkarte bateko taldean. Koldo Izagirre

Kafetxeetan teari azukre koxkor bat bota eta bigarrena etxerako gordetzen zuten **alargun** bileretako kideek. Harkaitz Cano

Alargun zapi lodi batez egongo da estalita, jantzi beltz apalez jantzita, eta aurpegiko zapia jasotzen duenean ez du sufrikariozko aurpegia erakutsiko, argizarizkoa bezalakoa baizik, eta begiak ere beti apal edukiko ditu. Josu Zabaleta

Zakukia zeraman soinean eta gainetik **alargun** -jantzia. Elizen arteko biblia

Alargun zapi lodi batez egongo da estalita, jantzi beltz apalez jantzita, eta aurpegiko zapia jasotzen duenean ez du sufrikariozko aurpegia erakutsiko. **Alargun** jantziak erantzi zituen, bainatu zen, eta usain gozoz igurtzi zuen gorputza. Josu Zabaleta

Ondoren, handik alde egin zuen Tamarrek eta, aurpegiko zapia kenduta, **alargun** -soinekoa jantzi zuen ostera ere. Jose Antonio Mujika

Orduan, Tamar, **alargun** -soinekoak erantzi eta, inork ez antzemateko bere burua zapiz estalirik, Timna bidean dagoen Enaim hiriko sarreran jarri zen. Elizen arteko biblia

5 (adizlagun gisa)

Ni, Giuliaren ezkontzaren ondoren, nire untxiekin bakarrik geratua nintzen; **alargun** eta emazurtz sentitzen nintzen. Zeren Ramsay ume arteko nahaspila batean bizi baitzen, eta bera berriz seme-alabarik gabe eta **alargun** -. Juan Garzia

Alargun gelditu eta benetan bakarrik dagoenak Jainkoarengan jarria du itxaropena. Elizen arteko biblia

-Zoriontsua mutilaren begiek jo duten emakumea! -ahoskatu zuen, edo airera esan, Brigidak, hiru aldiz ezkondu eta hiru aldiz **alargun** geratu zen emakume pertxentak. Felipe Juaristi

Oso bizkor geratu zen **alargun**, eta esamesa zebilen nire aitonak bere burua hil ote zuen, haren infideltasunak jasan ezinez. Juan Garzia

Ama berri zela utzi zuten **alargun** nire arrebaordea. Aingeru Epaltza

Borreroak bi musu eman ohi dizkio **alargun** utzi berri duen emakumeari. Karlos Linazasoro

Hiltzean, **alargun** utzi du bere emazte Zeferina Artetxe Muruaga. Edorta Jimenez

Alchononek bazeramatzan bost urte **alargun**, trufari eta txantxazale, burutik apur bat joana zegoelako ospea zuen. Koro Navarro

Ez bedi inor poztu ni **alargun** eta denek bazterturik ikustean. Elizen arteko biblia

Geldi bitez emazteak seme-alabarik gabe eta **alargun**. Elizen arteko biblia

Aitarik gabe gaude, umezurtz; gure amak, **alargun**. Elizen arteko biblia

6 ***bizi-alargun*** *(orobat* ***bizialargun****)* *iz* ezkonlagunaz bizi ez dena.

Jexuxek hainbestetan aipatzen dituen **bizi-alargun** kontuak ere bai, batere erreparorik gabe kontatu ere; baita bere senarra izan zena zerri-jateko apustu batean hil zela. Xabier Etxabe

Bizi-alargun prestua nauzu gaur gauean. Mirentxu Larrañaga

Ez zuen **bizi alargunik** deskribatzen zuen nobelarik irakurtzen, emazteak adarrak jarri zizkionetik. Javi Cillero

Aspaldi umezurtz geratutako haurride bakar **bizi-alarguna** nintzen, eta ez nuen adiskide minik. Juan Luis Zabala

Berak mantentzen zituen, baina ez zen gehiago etzan haiekin. Giltzapean eduki zituen bizitza guztian, **bizi-alargun** betiko. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alargun batekin (3); **alargun baten** (9); **alargun behartsu** (5); **alargun beltza** (11); **alargun beltzaren** (5); **alargun beltzaz** (4); **alargun daude** (3); **alargun gaztea** (5); **alargun gazteak** (3); **alargun gelditu** (4); **alargun geratu zen** (3); **alargun gisa** (4); **alargun haren** (4); **alargun hau** (4); **alargun pentsioak** (3); **alargun pentsiodun** (4); **alargun pentsiodunen** (3); **alargun pentsioen jabe** (3); **alargun soinekoa** (3); **alargun utzi** (3); **ama alargun** (3); **baina alargun** (3); **baten alargun** (4); **bizi alargun** (4); **da alargun** (4); **dira alargun pentsioen** (3); **edo alargun** (5); **emakume alargun bat** (4); **emakume alargun bati** (3); **emaztea alargun** (3); **gabe eta alargun** (3); **haren alargun** (6); **hiru aldiz alargun** (3); **ni alargun** (3); **zen alargun** (3); **zuen alargun** (3)

alarguna bera (4); **alarguna da** (6); **alarguna ere** (3); **alarguna eta semea** (3); **alarguna izan** (4); **alarguna naiz** (4); **alarguna zela** (3); **alarguna zen** (7); **baten alarguna** (7); **emakume alarguna** (4); **haren alarguna** (4); **zen alarguna** (3)

alargunak bere (3); **alargunak ere** (4); **alargunak eta seme** (4); **alargunak eta umezurtzak** (3); **alargunak ez zuen** (5); **alargunak keinua** (3); **alargunak uste** (3); **baina alargunak** (4); **bere alargunak** (3); **buesaren alargunak** (4); **du orain alargunak** (4); **idatzi zuen alargunak** (3); **pentsatu du alargunak** (3); **pentsatzen du alargunak** (4); **ugalderen alargunak** (3)

alargunaren semea (5); **alargunaren semeak** (3); **zuen alargunaren** (3)

zitzaion alargunari (3)

umezurtz eta alargunei (4)

alargunen pentsio (3); **alargunen pentsioa** (3); **alargunen pentsioak osatzeko** (3); **cdnk alargunen pentsioak** (3); **nafarroako alargunen** (3)

umezurtz eta alargunentzat (3)

---

alargunaldi *iz* norbait alargun dagoen denbora.

Hil zen, dakizun bezala, handik gutxira; eta nahiz, oro har, ez nuen harez zer deitoraturik, ez nuen bizitasun gutxiagoz sentitu neure **alargunaldiak** eman behar zidan libertatearen balioa, eta hartaz baliatzea hitz eman nion neure buruari. Jon Muñoz

Aitortzen dut haren bizitzako xehetasun horrek duela nire begien aitzinean gehien ohoratzen: orobat aski izan baitu bere **alargunaldiaren** hastapenean egozten ahal zitzaizkion oker zenbait ororen begien aitzinean arras justifikatzeko. Jon Muñoz

Bere **alargunaldian** zehar ere ez ote zitzaizkion, bada, gaizki esaka aritu? Patxi Zubizarreta

---

alargundu, alargun(du), alarguntzen **1** alargun bihurtu.

Dagoeneko badira hiru hilabete **alargundu** zela. Imanol Zurutuza

Gaztea zen oraindik, nahiz eta ahaleginak egin behar zituen sinesteko, **alargundu** zenez geroztik. Imanol Zurutuza

Betidanik izan duen zakartasunerako joera areagotu egin zitzaion **alargunduz** geroztik. Xabier Mendiguren Elizegi

Alargundu zenetik urte asko igaro baziren ere, Alchonon ezkontzeko ahaleginean zebiltzan oraindik ere ezkongileak. Koro Navarro

Duela urte bi **alargundu** nintzenetik, kaka hutsa den alarguntza pentsioarekin bizi gara semea eta biok. Berria - Harian

Egun batean, jaun Ricardo Menesesekin ezkondu nintzen, bizi izan nintzen harekin sei urtetan seme-alabarik izan gabe, **alargundu** nintzen. Joan Mari Irigoien

Alargundu ondoren, Antonie Macquart mozkortia maitale hartu eta beste bi ume izan zituen, Antonie eta Ursule. Karlos Zabala

Seme-alabak kanpoan, **alargundu** berri, eginkizun goratsurik gabeko seniderik ez bere kargu egingo zenik. Anjel Lertxundi

Bere hirurogeita hamarretan, **alargundu** berria, eta bere bi seme-alabak nor bere aldetik joanak, tristagarri zitzaiola arras hamaika poz-iturri izandako txoko kuttuna hutsik topatzea, eta saldu egin nahi zuela. Txillardegi

Eta ni, gaizo zozoa, amorostu nintzela ene koinata **alargundu** berriaz! Daniel Landart

Handik gutira jakin zuen ez zela **alargundu** zaharra. Jose Angel Irigaray

Hogoi bat urte bazuen **alargundua** zela. Herria

Robert-ek aldiz lagundu du bere koñata, gazterik **alargundua** bi haur ttipi zituela hazteko, haatik haurrak haunditzearekin joan zen Larzabaleko esnetegirat langile eta han lanean arizan erretreta artino. Herria

Alarguntzen da emazte bat gelditzen delarik bere zazpi haurrekin. Herria

Jaun Marcel apez izaiteko bidean egon zen; ordenatzeko puntuan zegoela, ordea, neska batez amorostu eta harekin ezkondu zen, handik gutirat **alarguntzeko** . Joan Mari Irigoien

Carmen Lopez Lekunberrin **alargundu** zuten, baina abegi egiten dio Metxa halaber gazterik **alargunduari** (alargun guztiei kukuso mota berak ematen omen die azkura).· Gizon **alargundu** berriari kontsolamendu-izpi bat eskaini. Markos Zapiain

2 (era burutua izenondo gisa)

Migel Mailu **alargundua** ez zen berriz ezkonduko. Aingeru Epaltza

Gizonezko **alargundu** bat, nahiko adindua baita ere eta bere garaian notario ospetsua izandakoa. Joxemari Iturralde

Alargunak uste du horretan datzala, agian, Marcel Prousten pertsonaia hari, Swann zahar **alargunduari** , gertatzen zitzaionaren arrazoia. Imanol Zurutuza

Hori guztia ama bakarrak ezkongabeak, banandutakoak edo **alargunduak** , aita bakarrak, aitak eta amak, aita bik edo ama bik ematen badiote, bejondeiela! Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alargundu berria (3); **alargundu egin** (3); **alargundu eta** (3); **alargundu ondoren** (6); **alargundu zela** (4); **alargundu zen** (3); **alargundu zenean** (5); **alargundu zenetik** (5); **eta alargundu** (3)

---

alarguntasun **1** *iz* alarguntza.

Emetasunaren barruko argia ere han zen, eta Tinaren duintasunezko eta nahigabezko jas hura doluzko **alarguntasun** irudi perfektua zen, dohain izugarriko aktoresa baten antzezpena. Oskar Arana

Ez dut zertan, haren ohorerako, berriro aipatzen ibili haren jatorri ospetsua, familiaren noblezia, ondasun handiak, ezta haren bertuteen perfekzio miragarria eta **alarguntasun** luzeko kastitatea ere. Askoren artean

2 ***alarguntasun-agiri*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Dena den, aurrerantzean ere, bizitza -, ezkongabetasun -, edo **alarguntasun-agiriak** egin ahal izango dira; horretarako, prozedura zehatza ezarri da, gutxieneko bermeak dituena eta nahi den helburua lortzeko egokia dena. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

alarguntsa **1** *iz* emakume alarguna.

Alarguntsa baten etxea zen, antza, diru pixka bat irabazteko apopiloak hartzen zituena, garai hartan askok egin ohi zuen moduan. Koldo Izagirre

Komentua du **alarguntsa** batek egiazko aterbe; eta baldin jarrai baleza hain delibero laudagarriari atxikia, emakume horri dagoeneko zor dizkiodan esker on guztiei emendatuko diet abentura honek dukeen ospearena. Jon Muñoz

Barre egin nuen noski, baina laztandu ere bai, hain xuxen ere **alarguntsa** gazte bat laztandu eta kontsolatu ohi den bezala, eta musu eman nion. Joxe Austin Arrieta

Behealdetik ***Alarguntsa*** *alaia* izeneko baltsea jotzen ari zen pianola baten notak zetozen. Lopez de Arana

Norbaiti anaia ezkondu bat seme-alabarik gabe hiltzen bazaio, ezkon bedi **alarguntsarekin** , anaiari ondorengoa emateko. Elizen arteko biblia

Jesukristok kontatutako zenbait parabolatan **alarguntsak** hobeki tratatuak ziren aberats eta ahaltsuak baino. Xabier Olarra

Har itzazu errespetuz eta zaindu norengana jorik ez duten **alarguntsak** . Elizen arteko biblia

Ez erabili gaizki **alarguntsak** eta umezurtzak. Elizen arteko biblia

Aitorpen honek ez du kriminal zaharra asaldatu, aspalditxotik baitaki zeinen arriskutsuak diren **alarguntsen** opariak. Koldo Izagirre

Jadanik xiii. mendearen erdi aldetik nobizia umezurtzez eta goi- eta behe-nobleziako **alarguntsez** hornitu ziren aurretik zeuden komentuak betez eta beste asko sortzera behartuz. Joan Mari Lekuona

2 (izenondo gisa)

Bertako protagonistak, Merteuileko markesa **alarguntsak** , tentu handiz ezkutatzen dizkio bere bilaukeriak gizarteari, emazteek ez baitute beste irtenbiderik gustuz bizitzekotan. Markos Zapiain

3 ***alarguntsa-belar*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Queen's Hotel, Ennis, Clare konderria, non hil baitzen 1886ko ekainaren 27an Rudolf Bloom (Rudolph Virag), zehaztu gabeko orduren batean, **alarguntsa-belar** (akonito) gaindosi baten ondorioz, linimento neuralgikoaren forman bere buruari emanda, akonito-linimentoaren 2 parte kloroformo linimento parte bakoitzeko [...]. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alarguntsarekin ezkondu (3); **alarguntsari eta** (3); **bereko alarguntsa** (3); **egun bereko alarguntsa** (3); **zenaren alarguntsa** (4)

---

alarguntza *iz* ezkontidea hil eta berriro ezkondu ez den pertsonaren egoera.

Suerte ona ukan dut naski, **alarguntza** arte. Piarres Aintziart

Pentsio osagarri arruntak eta bestelakoak ematen dizkiegu bazkideei: ezintasunengatik edo **alarguntzagatik** , adibidez. Berria - Ekonomia

Haren erdi kontsolaezinak hemen behar du pasa bere **alarguntza** atsekabetuaren denbora guztia. Jon Muñoz

Ni akabatzen banaute, beste batekin ezkontzeko diru pixka bat edukiko duzu, errepublikaren **alarguntza** sariarekin. Jon Maia

Duela urte bi alargundu nintzenetik, kaka hutsa den **alarguntza** pentsioarekin bizi gara semea eta biok. Berria - Harian

---

alarguntze *iz* alargun bihurtzea.

Horrek guztiak prebentzioa errazten du, eta arazoei aurre egiteko gaitasuna eman, bai baitakigu adin horretan izaten direla erretiroak, **alarguntzeak** eta gaixotasun larrienak... Berria - Euskal Herria

---

alarma 1 *iz* arriskuren baten berri ematen duen seinalea.

Alarma horiek sistema zentralizatu batekin komunikatuta egoten dira. Berria - Harian

Luth ere konturatu zen hartaz, eta barruan **alarma** piztu zitzaion. Joanes Urkixo

Sei hilketa hauek, guztion artean hala erabakirik, gordean pasatzea erabaki zen, hiritarrengan beldurra eta **alarma** ez piztearren batik bat. Karlos Linazasoro

Alarma jo zutenean, berak eraman omen zituen guardia zibilak osabaren etxeraino. Rafa Egiguren

Hauxe bai derrepenteko zaparrada zaratatsu eta haizetsua, azkar asko hustu da jendez etorbidea, **alarma** jo balute bezala. Joxe Austin Arrieta

Etxera sartu eta, **alarma** deskonektatu bezain laster, konbinazio erdi bat prestatu du. Iban Zaldua

Eta nik, **alarma** piztua, ezjakinarena egin, eta ezetz erantzun diot. Patxi Zubizarreta

Blokeatuta zegoen **alarma**. Jon Muñoz

Bere logelan, bi ate harantzago, itzargailuaren **alarma** hasi da jotzen. Oskar Arana

Kasu egin nahi ez dion sentipen bat ari zaio gizentzen barru-barruan, erne ibiltzeko ohartarazten duen kezka bat, Jokoa bertan behera uztea gomendatzen dion **alarma** bat. Antton Olano

Baina alerta **alarma** bihurtu da, eta hegaztiak hazten ari diren pertsonak ari dira horren ondorioak jasaten. Berria - Gaiak

Ezustean Koiotek autoaren aurreko gurpila ostikoz jo, eta lapurreten kontrako **alarma** zalapartaka hasi da: *duhi-duhi-duhi!* *Patxi Iturritegi*

Alarma horiek sistema zentralizatu batekin komunikatuta egoten dira. Berria - Harian

Alarmaren botoia sakatu eta oihuka hasi nintzen, Makina guztia atzera! Joseba Sarrionandia

Edonola ere, behin eta berriz azpimarratu zutenez, oraingo honetan ez zegoen **alarmarako** lekurik. Patxi Iturritegi

Lantegi horretan ez zegoen, gainera, ez morroilorik, ez **alarmarik**, ez suteen aurkako sistemarik, ez ke-detektagailurik. Jon Muñoz

Alarmatzat interpretatu zuen, eta zigarreta iziotu berria hautsontzian lagata abiatu zen komunera, uzkurdurak behartutako ibilera xelebrez. Unai Iturriaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hemen ez ote zuen **alarma** elektronikoa zinez merezi "lapurrekin jostetan dabilan xakurrak", edo ere kanporateko bidea "milioi piloa jaso-ta lanik ez egin" dabilan futbolari izarrak! Herria

Alarma faltsu gehiegi sorrarazten dizkigu. Fernando Morillo

Maelen aurpegian **alarma** gorria piztu zen. Joanes Urkixo

Alarma urrunen batek jo zuen orduan, militarretik edo desegokitik zerbait bazuena, ez dakit ongi. Karlos Linazasoro

1838ko azaroaren 27an Esparterok debekatu egin baitu txapela janztea, arrazoitzat hauxe emanez: "Isabel II Erreginaren legezko eskubideen eta Konstituzioaren aurka gerra egiten dutenen ezaugarri berezia da (...), eta mania edo moda horrek **alarma** soziala (--!) eta nahasmendua sortzen du". Koldo Izagirre

Larridura sakona eta arreta gehiegizkoa nabari zitzaizkion, berehalako **alarma**, edozein ume galdu edo zauritu zela aipatze hutsarekin Pareko espaloian lapurretako **alarma** bete-betean ari zen, aldiro. Xabier Olarra

Erizainek ez dute ezer egin behar, haurraren gorputza bera konturatzen delako segituan; baina haur bakoitza argi gorria da, ustekabeko **alarma**. Alberto Barandiaren

Bat-bateko **alarma** bat, baina berriro, berehala, isiltasuna, eta oinazturak lautadaren gainean. Joxe Austin Arrieta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Goizean, oraindik gosaltzen ari ginela, lehenengo **alarma** abisua jo zuten. Josu Zabaleta

Plana prebentzioan oinarritzen da eta **alarma** mailak ukanen ditu, tokian tokikoa, eskualdekoa eta Frantzia mailakoa. Berria - Euskal Herria

Poliziak hiritik ateratzea debekatu die bisitariei; Israelen, berriz, **alarma** egoera ezarri du Gobernuak . Berria - Mundua

Bidegurutze guztietako **alarma**-hotsak entzuten ziren nonahi. Josetxo Azkona

Etxerako bidea hartu nuen, neure buruari galdetuz nolatan ez nuen entzun **alarma** sirenarik. Felipe Juaristi

Ospitalean ere lege bera dago eta kea sortuz gero **alarma** txirrina entzuten da. Berria - Harian

Alarma argiak piztu badira ere, ez da hori galarazteko kanpaina zehatzik inondik ikusten. Berria - Euskal Herria

Halaxe egon zen denbora pitin batez, ordurako odol-zorabioa erdi sosegatzen hasia, burmuinetan pizturiko **alarma**-zeinu urruna entzun eta ulertzeko. Anjel Lertxundi

Ametsaren errepikapen erlatiboarekin harritu samar nengoen, baina artean ez zitzaizkidan **alarma**-seinaleak piztu; buru barruan bueltaka zebilkidan eltxo bat besterik ez zen, nolabait esateko. Iban Zaldua

Orduan aire-erasoaldia iragartzen zuen **alarma** adarrak jo zuen. Edorta Jimenez

Eraikuntzatik kanpo, aurreko aldean, jendearen zalaparta entzun genuen: **alarma**-oihua emanda zegoen. Rafa Egiguren

Maoismoak ideologia klasiko guztiak urduritu zituen, garai hartako Marco Bellocchio-ren La Cina è vicina (Txina hurbil dago) filmeko izenburuaren **alarma**-dei ironiatsua lekuko. Anjel Lertxundi

Rohirrimdarrek ez zuten **alarma**-deien eta ahotsen beharrik: behar baino hobeto ikusten zituzten bela beltzak beraien begiekin. Agustin Otsoa

Nire bidelaguna ere horretantxe ari zen, bere igeri-jaka lotzen, umoretsu noski, horrelako **alarma**-ariketetan halaxe behar ere eta. Joxe Austin Arrieta

-Baina, zergatik zeuden piztuta bart **alarma**-suak? Agustin Otsoa

Zelula "iragankorrek" inhibi ditzakete zelula "iraunkorrak": zelula "iragankorrak" **alarma**-sistema moduko bat-edo balira bezala har daitezke, bada, eta zelula "iraunkorrak" analisi-tresna bat balira bezala. Josu Zabaleta

Horixe da halako azpiegituretan larrialdietarako dauzkaten hiru **alarma** moduetatik arinena. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

EAEn Estatutu egitasmoa onartu izanagatik, Nafarroan ez dela "inolako gizarte **alarmarik** piztu" adierazi zuen. Kale-kantoian, gizon bat sute-**alarmaren** kutxa aztertzen ari zen. Berria - Harian

Ilunabarrean, afaltzeko orduan, hegazkin **alarma** berriro. Josu Zabaleta

Lan egitea ezinezkoa bezain alferrikakoa zen: denbora ia osorik joaten zitzaigun aire-**alarma** bakoitzean aparatuak desmuntatu eta alarmak amaitzen ostera muntatzen. Juan Garzia

Goizeko hamarrak aldera han ekin zioten zarataka "Fliegeralarm"aren sirenek, aire-**alarmarenak**. Juan Garzia

Ene baitan, barne-**alarma** guztiak batera piztu ziren: "erne! erne! erne! Aingeru Epaltza

5 ***alarma egoera***

Erasoak saihesteko, hilabetez, **alarma egoera** ezarri dute. Berria - Mundua

Nepalgo segurtasun indarrak **alarma egoeran** daude, eta Armadako soldaduek Gobernuaren eraikinak babesten dituzte, eraso posibleak saihesteko asmoz. Berria - Mundua

Orain aste pare bat Euskal Herrian izandako atxiloketek 24 pertsona atxilotu zituzten haur pornografia edukitzeagatik eta zabaltzeagatik **alarma egoera** piztu du herritarren artean. Berria - Harian

6 ***alarma piztu***

Aginduak **alarma piztu** du eskubide zibilak eta pribatutasuna defendatzen dituzten taldeen artean. Berria - Gaiak

Horregatik **alarma pizteko** arrazoia badagoela uste du. Berria - Euskal Herria

Liburuan, **alarma piztu** nahia leporatzen die erakunde ekologistei. Berria - Gaiak

Alarma pizturik ikusten du Arabako Enpresaburuen Elkarteak, SEAk, eta industrian "egitura krisia» agerian uzteko arriskuaz ohartarazi du erakundeko idazkari nagusiak, Jose Manuel Fartok. Berria - Ekonomia

Hor barruan ez zegok inor, eta hainbeste zalapartarekin **alarma piztuko** diagu auzoan. Rafa Egiguren

Lehen agurra botatzen hasi, eta esaldiak adabakiz josi beharrean aurkitzen bagara, **alarma piztuko** zaigu, egun disdiratsu horietakoa ez dugula adieraziko diguna. Andoni

Egaña

Eta nik, **alarma piztua**, ezjakinarena egin, eta ezetz erantzun diot. Patxi Zubizarreta

Luth ere konturatu zen hartaz, eta barruan **alarma piztu** zitzaion. Joanes Urkixo

7 *alarmak piztu*

Pilota bat ere bada Irujorena, aukeraketa egunean **alarmak piztu** zituena. Berria - Kirola

Hala ere, litekeena da Jean Claude Trichetek aipamena egitea euroaren indarrari buruz, esportazioei egiten ari zaien kalteak lehen **alarmak piztu** baititu. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alarma adarrak (3); **alarma bat** (4); **alarma deia** (5); **alarma egoera** (5); **alarma egoera ezarri** (4); **alarma eta** (4); **alarma faltsu** (3); **alarma faltsua** (9); **alarma gorria** (19); **alarma gorria piztu** (10); **alarma gorriak** (4); **alarma handia** (5); **alarma hotsa** (4); **alarma jo** (6); **alarma piztu** (22); **alarma piztu du** (6); **alarma piztu zen** (4); **alarma seinalea** (3); **alarma sistema** (8); **alarma sortu** (4); **alarma soziala** (7); **alarmak piztu** (3); **alarmaren bat** (4); **baina alarma** (4); **de alarma** (3); **estado de alarma** (3); **eta alarma** (15); **gizartean alarma** (5); **zuen alarma** (4)

---

alarmagarri *(ETCn **18** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **aztoragarri** agertzen da)* *izond* alarma pizten duena.

Zona Nazionalera ihes egitearen zera hori idatzi zuenerako gizona aldaketa **alarmagarria** jota zegoan. Edorta Jimenez

Iritsi aurretik, Urdaibaiko zeruaren gorriak eta Bilborantz ihesean zihoazen gizon-emakume aldrek zentzuz bete zituzten Euzkadiko Jaurlaritzako informatzailearen hitz **alarmagarriak**. Lutxo Egia

Zona Nazionalera ihes egitearen zera hori idatzi zuenerako gizona aldaketa **alarmagarria** jota zegoan. Edorta Jimenez

Zeren, alde batetik, egun ez bezala, izu-ikaraturik baitzegoen orduko gizartea, gaitzaren inguruan zabaldutako berriak ere halakoak baitziren, kezkagarriak eta **alarmagarriak**, eta zeren, bestetik, olioa bezala zabaltzen baitira morboa eragiten diguten berriak. Joan Mari Irigoien

---

alarmatu, alarma(tu), alarmatzen *(ETCn **81** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **aztoratu**, **alarma(k) piztu**, **larritu** eta **estutu** agertzen dira)* da/du *ad* asaldatu, larritu.

Atea braust zabaldu eta aurrean jarriko zitzaien, gaitzetsiz bezala, salatuz bezala, mehatxatuz bezala, **alarmatuz** bezala. Anton Garikano

Bezperan jazotako guztiaren irudiak gogora etorri zitzaizkion: nola bere nagusia lurrean etzanda zegoen, eta haren ondoan gizon hura besoa moztera nola zihoakion, eta nola berak, gizonaren inguruan aureola gorria ikusirik, **alarmatuta**, instintoz erreakzionatu zuen. Joanes Urkixo

Zergatik ez dituzu belarriak estali, mutil? -galdetu zion druidak, **alarmatuta**-. Joanes Urkixo

---

alarmismo *iz* berri alarmagarriak zabaltzeko joera.

Bjorn Lomborgek **alarmismoa** piztea leporatu die erakunde ekologistei. Berria - Gaiak

Alarmismoak ez luke prentsaren lagun behar. Iñigo Aranbarri

Espainiako Senatuko presidente eta PSEko zuzendaritzako kide Javier Rojok nafarren artean **"alarmismoa"** sortzea egotzi dio Sanzi. Berria - Euskal Herria

Albisteari **"alarmismoa** kentzeko" eskatu zuen PSE-EEren Eusko Legebiltzarreko bozeramaile Jose Antonio Pastorrek, "kontu handiz" jokatu behar dela halako gaiekin eta "egiaztatu arte" itxaron beharra dagoela. Berria - Euskal Herria

Uko egiten dio nerabeak kontsumista, azaleko eta indibidualista direla diotenen **alarmismoari** ere. Berria - Euskal Herria

Ez da **alarmismoz** jokatu behar eta aurrera egin behar dugu denok. Berria - Harian

Lasaitzeko mezua zabaldu nahi du Ritxi Aizpuruk, balizko **alarmismoaren** aurrean. Berria - Harian

---

alarmista *izond/iz* alarma pizteko joera duena.

Inguruan bizi diren herritarrek mezu **alarmistak** entzuten hasi ziren; osasunarentzat kaltegarriak zirela eta halakoak. Berria - Euskal Herria

Hortik Mariano Raxoiren bisita, eta Euskal Herriaren existentziaren ukazioa; eta Miguel Sanzen eta Juan Cruz Alliren adierazpen **alarmistak**. Berria - Harian

Errauste planta "inposatzeko" argudio **"alarmistak"** erabili dituztela esan zioten. Berria - Euskal Herria

Garabi enpresen elkarteak aipatutako 4.000 ibilgailuen kopurua **"alarmista** eta oinarririk gabekoa" dela ziurtatu du Polizia autonomikoak. Berria - Ekonomia

Ez dut **alarmista** izan nahi, baina hobe da bilera gehiago ez atzeratzea. Fernando Morillo

Koordinakundearen adierazpenak **"alarmistatzat"** jo zituen. Berria - Euskal Herria

Pentsioekin **alarmistegia** izatea egotzi diote eragileek Jaurlaritzari. Berria - Ekonomia

ELA eta LAB sindikatuek, edo Confebask enpresaburu elkarteak egitasmoa oinarritzeko argudioak kritikatu zituzten, eta etorkizunaren diagnostikoan **alarmistegia** izatea leporatu zioten. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alarmista hutsak (3); **alarmtatzat jo** (3)

---

alartze *iz* atalasea.

Horregatik, **alartzean** geratu nintzen, sartu gabe, errieta egingo zidalakoan; baina begiratu besterik ez zidan egin, Florentek dendatik zeramanean, atearen **alartzera** etorri eta bi anaiak Lebigrerenean nola sartzen ziren ikusten zuen, pitin bat zurbil, begiak gogor. Ramon Saizarbitoria

Han zen ama atearen **alartzean**, kandela bat eskuan. Juan Garzia

Dendaren **alartzera** ateratzen zen batzuetan, egurastera, Karlos Zabala

---

alaru ik **alarau**.

---

alasa *iz* sukaldeko hainbat tresna zintzilikatzen diren ohol kakoduna. ik**arasa**.

Alasak, jantzi-armairuak, jantzitokiak, gainezka zeuden guztiak jantziz eta arropa xuriz: lisatuak, tolestuak, tontor erregularretan ordenatuak, plastikozko poltsen barruan batzuetan edo kutxa txikitan zetazko paperean bilduak. Joxan Elosegi

Etxeko **alasa** baten barnean egon da kaiera Pakistanetik itzuli ginenetik, gauza pilo baten pean nolabait ezkutaturik. Xabier Montoia

Eserita jarri ohi zen gehienean, hankak beste aulkian luzatuta, burua **alasa** txiki baten kontra, postuaren atzealdean. Karlos Zabala

Bide-ertzeko zurezko ostatutxo ugarietan aurkitu ohi diren lagun zahar guztiak kausitu zituen Txitxikovek gela hartan ere, hau da: samovar intzigarrez estalia; pinuzko horma

ondo leunduak; hiru ertzeko **alasa** zoko batean, teontzi eta katiluz beterik. Jose Morales

---

alatsu *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) izond* mingarria.

Garrasia eragiten duen oinaze **alatsua** edota berehala arintzen da edota sufritzen ari dena txikitzen du. ETC-literatura, saiakera

Akabuko urteetako afrontua aida baten trimindu eta aterrunean, andraize **alatsu** baizen ailatsu bihurtu gara sokorruka hasteko. ETC-prentsa

---

alatu[1] *(orobat **alhatu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **alhatu** agertzen da)*, ala(tu), alatzen **1** da *ad* animaliez mintzatuz, jan, bazkatu. ik **alhatu**.

Bederatzi ilabetez, Nafarroako Erriberako lurralde hortan **alatuko** dira artaldeak. Herria

Ez nuen uste hainbeste txori motaren izenak nekizkienik, azaldu ahala izendatu ditut han behean kaiolatuon elkartasunetik **alatu** diren hegaztitxoak. Koldo Izagirre

Nork erranen zuen Arlantto-ren ardiak **alatzen** diren pentzera jinen zirela hainbertze kantari eta musikari, zenbaitzu ospe handikoak. Herria

Malkarrean **alatzen** diren ahuntzen zintzarriak iristen dira enegana. Koldo Izagirre

Ardiak **alatzen** diren zelai gorrixka baten gainean trenkatzen dira mendiko gailurreriaren itzal zabalak. Koldo Izagirre

Milaka ardi, behi, zaldi (eta zerri!) **alatzen** da hemen. Herria

Kabalek ere baliatuko dute errekaz bertzaldeko mendialde horietarat **alatzerat** joaiteko. Herria

Larratzeak, alabaina, ez du bakarrik erran nahi konfesioak entzutea eta penitentziako sakramentua ematea, baina eskualdeen eta herrien gaineko artzainak ezartzea ere bai, eta haien **alhatzeko** eta salbatzeko behar diren gai guztietan eskolatzekoa. Piarres Xarriton

Suak garbitzen duela mendia eta errexten **alhatzeko** belar hobearen pusa. Herria

2 *irud /hed*

Hitzaren belardiak **alhatzen** ditut hargatik. Itxaro Borda

Bortizkeriaren ondorioa bortizkeria, batak bertzea sorrarazten, bortizkeria bortizkerian **alhatzen**. Michel Oronoz

---

alatu[2], ala(tu), alatzen *(orobat **alhatu**)* da/zaio/du *ad* kontzientziaz mintzatuz, ausiki egin.

Alferrik, zeren atsegin iturritik bertatik sortzen baita halako zer garratz bat, loretzan ere nahigabea daragiena, dela kontzientzia **alatzen** delako. Xabier Amuriza

Raimundo Silvak hartu eta hitzen zein keinuaren esanahia ulertzen du, bere adimenak bokal bati gaineratu edo kendu zaion tonu-erdia irakurtzen badaki, bere belarriak bere begiek bezain ongi irakurtzen du, eta horregatik kontzientzia **alatzen** zaio apur bat Costaren tolesgabetasuna horrela engainatzen ari delako. Jon Alonso

Inor bortxaz erahiltzeko tentazioa izate hutsa kontzientzia **alatzen** zitzaion bortizki. Jon Alonso

Hala ere, ez zegoen beste azalpenik, ustekabean ongi izatearen adierazpena baizik ez ziren, ustekabeko kemen abantzu komikoaren adierazpena, kontzientzia **alatu** gabeko jainkoaren lasaitasunaren adierazpena. Jon Alonso

Bizitza, daitekeen neurrian, oinarri segurrean datzala, gizakiak, aintzan eta ohoreetan ahaltsu, aberastasunez gainezka zebiltzala eta seme-alaben izen onean gailentzen zirela eta, hala ere, bakoitzak bere baitan bazeramala larritasun bat, bere gogoaz bestera, bizitza etengabe **alatzen** eta auhen mingotsetan krudelarazten ziona. Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alatzen diren** (3); **kontzientzia alatzen** (3)

---

alatxi *iz adkor* alababitxia.

Aitatxi bat ere ikusi baitugu kantuz bere bi **alatxiekin** (hau Euskal Herritik jina zen). Herria

---

alatze *iz* kontzientziaz mintzatuz, ausiki egitea.

Alabaina, une honetatik beretik, etorkizunean zer egingo duen oraindik erabaki ez duenean, atenditu ez duen eskrupulo baten deserosotasuna sentitzen du, falta baino lehenagokoa den kontzientzia-**alatze** bat, arantza bat gogoan. Jon Alonso

---

alauda *(corpusean ez dago; ETCn **156** agerraldi)* **1** *iz* hegatxabala.

Hegatxabal, larretxoria, **alauda** edo laudeta ("**Alauda**") Alaudidae familiako genero (biologia) genero baten izen arrunta da, Eurasian jatorria duena. ETC-entziklopedia

2 ***alauda motodun*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Alauda motoduna da, hegatxabalaren antzeko hegaztia. ETC-entziklopedia

---

alaui *(corpusean ez dago; ETCn **52** agerraldi) izond/iz* alauismoaren jarraitzailea.

Presidentea **alauia** da -lehen nusairiak ziren, eta ez dute harremanik Marokoko erregearen sendiarekin-, eta Siriak dituen 24 milioi biztanleen %12 dira gutxi gorabehera gutxiengo horretakoak. ETC-literatura, saiakera

Saad Haririren ekintzaile sunitak ekintzaile **alauien** kontra borrokatu dira asteburuan Tripolin . ETC-prentsa

Gehienak, suniten eta Hezbolari lotutako **alauien** artekoak. ETC-prentsa

Kongresuak Mendebaldeko Saharako deskolonizazio prozesua amaitzeko egindako deia da, akaso, agintari **alauien** haserrea eragin duena, eta horregatik atera da azalpenak ematera Madril. ETC-prentsa

Hilketa harekin Anaia Musulmanek zuten indarra murriztu zuen Assadek, baina gehiengo sunitaren baitan gutxiengo **alauiarekiko** gorrotoa ere indartu zuen. ETC-prentsa

Siriako herritar gehienak sunitak dira, baina Al Assadtarrak eta erregimeneko kargudunak **alauiak** dira, xiiten adar bat, eta lagungarria izan zen hori Hezbolarekin harremana izateko. ETC-prentsa

Â"Geure auzoko **alauiek** tiro egiten ziguten. ETC-prentsa

Sirian gutxiengoa izan arren, **alaui** komunitate zabala bizi da Latakian, eta bertan jaioak dira Bashar al Assad eta haren aita Hafez al Assad ere. ETC-prentsa

"Siriak iraun nahi badu, lau eskualde autonomo eratu beharko dira: sunita arabiarra, kurdua, **alauia** eta druzoa", azaldu du Bave Sipan buruzagiak, Derikeko bere etxean. ETC-prentsa

XVIII. mendean **alauiek** eraikina zaharberritu zuten eta baita jauregi bat eraiki ere. ETC-entziklopedia

---

alauismo *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi) iz* xiismoaren adarra.

Xiismoaren adar bat da **alauismoa**, eta Al-Assad bera alauia da. ETC-prentsa

1979ko iraultzaz gero dator bi herrien arteko harremana Ruhola Khomeini Irango Errepublika Islamikoaren sortzaileak Al Assadtarren **alauismoa** publikoki eskertu zuenetik. ETC-prentsa

Gobernuak eta oposizioko Siriarako Giza Eskubideen Behatokiak berretsi dute erasoa, eta indarkeria sektarioko ekintza bat izan dela erran dute, muturreko sunitek egina -**alauismoa** islamaren bertze adarreko, xiismoko, joera bat da-. ETC-prentsa

---

alaxe ik **h**alaxe.

---

alazangoa *interj* alajaina, alajainkoa. ik **alazankoa**.

Bi urte gutxiago, **alazangoa** ! -esan zuen, dena segidan eta ia oka, arnasari eutsi behar izan zion aldi luzean hitzak pilatu eta pilatu egin balitzaizkio bezala. Anjel Lertxundi

Izan ere, Azpilgo belar gaiztoetan belar onik jaio bada, zure semearen izena darama... enperadore baten izena, **alazangoa** ! -esan zuen don Estebek, don Justinianoren egoa puzten zuela. Joan Mari Irigoien

---

alazanko *(orobat **alazango** eta **alazanku** g.er.) interj* mirespena edo harridura adierazteko erabiltzen den hitza, *alajainkoa*-ren leungarria.

-Alazankoa ! -egin nuen ene baitan banindoala-, horra hor gizon prestu bat. Koldo Izagirre

Alazankoa, baduk horretan zerbait naturaz gehiagokoa, filosofia xuxen atzemateko gauza balitz. Juan Garzia

-Ederra erbia Ehiztari Beltzari bidera atera zitzaiona, bai **alazankoa** ! Anjel Lertxundi

Bi urte gutxiago, **alazangoa** ! -esan zuen, dena segidan eta ia oka, arnasari eutsi behar izan zion aldi luzean hitzak pilatu eta pilatu egin balitzaizkio bezala. Anjel Lertxundi

Izan ere, Azpilgo belar gaiztoetan belar onik jaio bada, zure semearen izena darama... enperadore baten izena, **alazangoa** ! -esan zuen don Estebek, don Justinianoren egoa puzten zuela. Joan Mari Irigoien

Komando bat baino zerbait gehiago beharko da, **alazankoa** ! Jose Angel Irigaray

Alazankua ! Txillardegi

---

alazankoa *interj* alajaina, alajainkoa. ik **alazangoa**.

Komando bat baino zerbait gehiago beharko da, **alazankoa** ! Jose Angel Irigaray

Alazankoa, baduk horretan zerbait naturaz gehiagokoa, filosofia xuxen atzemateko gauza balitz. Juan Garzia

Tira: baietz jasan nik, **alazankoa**, hori ere! Juan Garzia

-Alazankoa ! -egin nuen ene baitan banindoala-, horra hor gizon prestu bat. Koldo Izagirre

Ez aspertzeko moduko ardura, **alazankoa** : alpha hizkia ezabatu zion lehen kantuari, beta bigarrenari, gamma hirugarrenari... eta horrela alfabetoko hogeita bost hizkiei akabua eman zion arte. Iñigo Aranbarri

-Ederra erbia Ehiztari Beltzari bidera atera zitzaiona, bai **alazankoa** ! Anjel Lertxundi

Durduzazko mikrosegundo baten ondoren ("**Alazankoa** ! Gizaseme bat -urde zerri alimale hura gizasemea bazen- emakumeen zerbitzuetan!"), betiereko izua. Joxan Elosegi

---

alazoko *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) izlag* aukerakoa, egokia. ik **alagalako**.

Oraintxe duzu **alazoko** aukera, kolpe bakarrean bi txori askatzeko. ETC-literatura, saiakera

---

alba **1** *iz* egunsentia, argi urratzea.

2 goiz alba ik **goizalba**.

3 ***argi albako*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Argi albako heltzen ziren gain haietara. ETC-literatura, saiakera

4 ***linea alba*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Adibidez, abdomenaren aurre aldean **Linea alba** izena ematen zaio bi aldeetako gihar zuzenen bitartean kokatzen den tendoizko elkargune luzeari. ETC-zientzia, zuzenbidea

Xifoide apofisitik sinfisi pubikoaren goiko ertzeraino hedatzen da. Lerro zuria edo **linea alba** , izenak dioen bezala, zuria da, ehun konektiboz osatuta dagoelako. ETC-entziklopedia

---

albacetear *izond* Albacetekoa.

Tarterik zabalena Pedro Sierra **albacetearra** eta bere sendia erbestera, Euskal Herrira bultzako duen bidearen kontakizunak hartzen du. Berria - Kultura

---

albahaka *(orobat **albaka** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **albaka** agertzen da) iz* belar landare abartsua, oso usaintsua, lore zuriak eta oso hosto berdeak ematen dituena. *(Ocimun basiilicum).*

"Belar motak biltzera joaten da!", esaten zuen beti gure amak, miresmenez beterik, berak ez zekielako margotzen, eta ez zuelako bereizten zer zen **albahaka** eta zer txikoria. Fernando Rey

Eta berak bezala, andre haiek bere herrian jaten zuten zerbait bilatzen zuten: mohama, txilarra, erromeroa, **albahaka** , sandia, olibak. Jon Maia

Gogoratzen naiz bereziki gose izan nintzela gau hartan, eta aitaren batean irentsi nituen atarikoak eta **albahakaz** ondu izkirak. Oskar Arana

Ilunabarrean krabelin, geranio eta **albahaka** ontziak ureztatzen zituzten. Josu Zabaleta

---

albaialde *iz* berun karbonato basikoa, kolore zurikoa, batez ere pinturan eta medikuntzan erabiltzen dena.

Albaialdea , labean erretzen denean, suaren beroarekin kolorez aldatzen da eta sandaraka bihurtzen da. Santiago Iruretagoiena

Askoz ere osasungarriagoa da ura tutuetatik eramatea hodietatik eramatea baino, beruna erabiltzea txarra dela baitirudi, berunetik **albaialdea** egiten delako, eta **albaialdea**

gizakiaren gorputzarentzat kaltegarria dela esaten delako. Santiago Iruretagoiena

Beruna ere, berez oso astuna eta oso malgua izanik, ontzi batean jarri eta, ontzi hori ozpinez bete ondoren, gainetik itxi eta zigilatzen baldin bada, beruna desegin egingo da eta **albaialde** bihurtuko. Santiago Iruretagoiena

Denbora-epe bat pasatu ondoren, irekitzen dituztenean aurkitzen dute berunezko plantxak **albaialde** bihurtu direla. Santiago Iruretagoiena

---

albailehen *adlag* lehenbailehen. ik **ahalbailehen**.

Renanek laster galtzeko arriskuan ikusten ditu bretoiak (Herder eta Humboldtek euskaldunak bezala), haien ahozko literatur altxorra **albailehen** bil dadin premian. Joxe Azurmendi

---

albaindu, albain(du), albaintzen *(orobat **albainutu** g.er.)* **1** du *ad* albainuz josi, behin-behineko jostea egin.

Izarak eta estalkia **albaindu** nituenean konturatu nintzen josteko makina ganbaran neukala. Jasone Osoro

Ofizial gizenek, berriz, esaten zidaten perlazko euria botatzen bazuen nik ile tente haiekin denak **albainutuko** nituela. Pello Lizarralde

2 irud/hed

Ama ez zen konturatu, baina barraskilo bat zebilkion marmol zuriaren gainean, denboraren hari mehea astiro **albainduz**. Berria - Kultura

Entzuten segitzen da oraindik ororen buruan, bere tanta aleak kazkabarkatuz, biziaren haria **albainduz**. Juan Garzia

Bide haren bi aldeak telegrafoaren zutoinen eta harien bidez elkarrekin **albaindurik** zeudela ematen zuen. Lopez de Arana

---

albainorratz *iz* albaintzeko erabiltzen den jostorratza.

Ura agortu samar egiten zaie, eta orduan kendu ura, karakolak hozten utzi eta gero banaka-banaka garbitu: **albainorratzarekin** oskoletik atera, atzeko poltsatxoa kendu, eta berriz barrura sartu. Pako Aristi

Bat etorri ziren katua akabatu, zatitu eta jan egin nuela, orduraino ostikadatxoren bat bota edo **albainorratza** ipurdian sartzea beste torturarik egiten ikusi ez nindutenak. Pako Aristi

---

albainu **1** *iz* hari zuntza.

Soubrine oinetan zuen, ahoa orratzez beterik eta **albainu** txiki batez lan eta lan. Lopez de Arana

Edo, zuzenago esateko, ospatua zen; zeren, jada ilunabarra zelarik (baina artean ere argiak, han-hemenka, urrekoloreko **albainuak** barreiatzen zituelarik), jenderik gehiena joana baitzen. Karlos Linazasoro

Indietako Javatik ekarritako liho **albainuz** ehundua zen, arrebak opari emana. Felipe Juaristi

Arin eta nekerik gabe, lau multzo bitxi eta kromatikoki nola-halakotan banatu, eta grisen eskalan ehuneko 0-25, ehuneko 25-50, ehuneko 50-75 eta ehuneko 75-100ekotzat definitu zituen (nahiz eta ezer ez iruditu zuri-zuria, eta hari-**albainu** zuria bera ere "arre" edo "zikin" samar begitandu). Xabier Olarra

2 irud/hed

Konturatu nintzen giza **albainuz** egina zela ahotsa, ahoak hortzak zeuzkala eta hitz egitean trabatzen eta destrabatzen zen mihi bat, eta lur gainean bizi den jendearen begi guztiak bezalakoak zirela emakumearen begiak. Juan Garzia

---

albainutu, albainu(tu), albainutzen du *ad* albainuz josi.

Ofizial gizenek, berriz, esaten zidaten perlazko euria botatzen bazuen nik ile tente haiekin denak **albainutuko** nituela. Pello Lizarralde

Haren ahoa hari-mutur bat miazkatzen zuenean **albainutzeko**, edo hozka egin eta eteten zuenean jostura bukatzean; haren begiko odola, defendatzen zituenean bere neskak -orain berea zuen Maitea ere- edo edozein emakume beltz laido batetik. Anton Garikano

---

albait *(-en atzizkia daraman adjektibo edo nola adizlagun baten ezkerrean)* ***1*** *adlag ahalik.*

Erradioterapia saioez gain kimioterapia ere baliatzea komeni zela, tratamendua **albait** eraginkorren gerta zedin. Imanol Zurutuza

Kafea arin edan du, **albait** lasterren nahi du handik irten, kalera joan, haize freskoa arnastu. Sonia Gonzalez

Sendagileak forzepsaren bi xaflak **albait** lasterren sartu eta haurra atera arren, hilda jaio zen. Josu Zabaleta

Alde egin besterik ez zuen nahi, ospa egin New Yorketik **albait** bizkorren. Oskar Arana

Albait geldoen joateko erregutu zion Mentxuk motozikletan igo zirenean, ez zeukala inora heltzeko ezelako presarik. Josu Landa

Ni saiatu naiz deiadarrik ez egiten, **albait** lasaien egoten, baina min lazgarria sentitu dut muinetan, Santosen kontra zegoen salaketa esan dutenean. Josu Landa

Hezurra hautsontzian utzi or-dez, bi hatzen artean hartu eta **albait** urrutien bidali dut. Xabier Mendiguren Elizegi

Skinny berriro eseri zen, **albait** urrunen, baina ezertxo ere ez galtzeko bezain hurbil. Lopez de Arana

Lagun sakabanatuen artean gutun eta paketeak jaso eta **albait** arinen entregatzen ditut, gure herri urrunetik zer helduko zain beti ni ere, denok bezala. Joseba Sarrionandia

Beraz, **albait** hobekien edo, behintzat, senak agintzen zion modurik onenean ahalegindu zen. Sonia Gonzalez

Eginahalak saiatu ditut aitak esan zizkidanak **albait** zuzenen jasotzen; gogoratzen ditudanei gogoratzen ez ditudanak erantsi gabe, alegia. Anjel Lertxundi

Ehiza-lagunak **albait** hoberen armatuta zetozen, artzain eta arrantzale baketsuak zirela kontuan hartuta. Joanes Urkixo

· Telebista hargailuak berak, telebistako irudia marko baten barruan kokatzen duelarik [...], estatutu berezi bat ematen dio irudi horri, izaera artistikotik **albait** urrunena (desakralizatua), "solasari" eta etenik gabeko "jarioari" atxikiagoa (telebistako irudia neuri ari zaidala ematen du. Josu Zabaleta

Horregatik, hain zuzen, kritikak behin betikotzat hartzen duen argitalpen hau hartu dugu guk ere, itzulpen honetarako oinarri gisa, jatorrizko testuari **albait** hurbilenetik lotuz, baina antzerki testua antzezpen bakoitzerako egokitzekoa dela ahaztu gabe betiere. Josu Zabaleta

Albait urrutienetik ari zen Joseluren borroka-saioa ikuskatzen. Josu Landa

Egoitza ofizialaren deskripzioa egin zion, alfonbra, koadro eta koloreez **albait** ñabardura gehien emanez. Josu Landa

Ulertzen dut gatz pittin bat erantsi behar izana -ale larrikoak gustu hobea ematen du, badakizu- gure artean bizi izan zituen pasadizoei, **albait** publiko zabalenera iristeko asmoz. Koldo Izagirre

Oraingoz, harrapa nazaten ekiditea, **albait** beranduenera arte. Agustin Otsoa

Bera optimum bat bezala agertzen da: irtenbidea eman zaien **albait** eta kontraesan kopuru handiena **albait** eta baliabide bakunenekin. Xabier Arregi

Eta eskain lekizkiokeen abantailak oro alde batera utzita, Nafarroara **albait** azkarrenik azaldu. Txillardegi

Gai asko daude konpontzeke, eta beharrezkoa da **albait** itun onenak egitea, azkar. Berria - Ekonomia

2 (esaldiaren amaieran)

Berak errona edaten zuen **albait**. Joseba Sarrionandia

Aztarnak ere borratu beharko ditugu **albait**. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
albait arinen (36); **albait azkarren** (10); **albait azkarren egin** (3); **albait azkarren eta** (3); **albait bizkorren** (4); **albait eta** (5); **albait gehien** (4); **albait lasterren** (17); **da albait** (3); **dut albait** (4); **dut albait arinen** (3); **eta albait** (12); **eta albait arinen** (6)

---

albaitari *(orobat **albaitero** g.er.)* **1** *iz* animalien osasuna zaintzen duen pertsona. ik **marexal**[1].

D Village-n badituzte antza albaitaritza herrikoiaren arabera lan egiten duen beren **albaitaria**, beren botikak, beren petrikiloak. Oskar Arana

Lumagorri SL hegaztien hiltegiko **albaitaria** da Unai Agirre, eta hegaztien gripeari begira Europan hartzen ari diren neurriekin harritu antzean mintzatu da. Berria - Harian

Albaitariak haren bila joan zirenean, komisarioak bihozkada bat izan zuen: ez zela Elsa zirkuko jabeak seinalatu zien ziminoa. Harkaitz Cano

Albaitariek eta animalien aldeko elkarteek jasotzen dituzte zakur zaurituok. Gotzon Garate

Gonzalezek katuak hartu, jana eman, **albaitariarengana** txertoa ematera eraman. Gotzon Garate

Albaitariak indizioa sartu zien sufri ez zezaten. Gotzon Garate

Albaitari gazte bat hartu zen, Jean Louis Guénet, CEAtik etorria, animalia-oste horren kargu egiteko. Juan Garzia

Hizlarietako bat Nina Marano izan da San Luisen, Ameriketako Estatu Batuetako Gaixotasun Infekziosoen Zentroko **albaitaria**. Berria - Gaiak

Lehenbiziko ipuinean aipatzen den on Antonio **albaitari** ekologista da hirugarren ipuineko protagonista. Markos Zapiain

· Carmen nire lagun **albaitariak** azaldu didanez, oraingo Afrikako animalia basati apurrak etxekotzen ari dira. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

FAOko **albaitari** zerbitzuko burua, Joseph Domenech, birusak Afrikara heltzeko jarraitu duen bidearen inguruan mintzatu zen: [...]. Berria - Gaiak

Dogubeyazit hirian atez ate ibili ziren atzo hainbat **albaitari** talde herritarrei hegaztiak emateko eskatzen. Berria - Gaiak

Albaitari agiria bertan behera uzteko eskatu dio EHNEk Iruñeko gobernuari. Berria - Ekonomia

Beste hainbat neurri hartzeaz ere mintzatu ziren: Espainiako Nekazaritza Ministerioak ezarritako **albaitari** ziurtagiriaren alperrikako gastuaz eta gorotzen kudeaketa nola bideratu. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta albaitariak (3)

---

albaitaritza *iz* abereen eritasunez eta horien sendabideez arduratzen den jakintza; animalien osasuna zaintzeko lanbidea.

Guztira, 1.300 landareri buruzko xehetasunak bildu zituen, herrian, sukaldaritzan, **albaitaritzan** edo medikuntzan zuten erabileraren zerrendarekin. Berria - Kultura

AEBetako behikiaren kalitatean konfiantza izaten jarraitzen dugu", esan du John Clifford AEBetako **Albaitaritza** buruak. Berria - Gaiak

Halaber, eta haragi-industriako eta **albaitaritzako** aldizkarietan, artikulu zenbait argitaratu ditu neurri gizatiarrei eta tratu goxoagoari buruz. Xabier Olarra

Albaitaritzako eskuliburu bat. Juan Garzia

Eraikin hits hau ez da animaliak sendatzeko lekua -Bev-ek ez daki nahikoa **albaitaritzaz**-, baizik eta azken baliabidea. Oskar Arana

D Village-n badituzte antza **albaitaritza** herrikoiaren arabera lan egiten duen beren albaitaria, beren botikak, beren petrikiloak. Oskar Arana

Erresuma Batuko **albaitaritza** zerbitzuko arduradun Debby Reynoldsek, egoeraren larria onartuagatik, loroa Hego Ameriketatik inportatua zela nabarmendu du, eta berrogeialdian zegoela hil dela. Berria - Harian

---

albaitean *(corpusean **ahalbaitean** soilik) adlag* albait, ahal den neurrian.

Inork ezin du eraman bere partikulartasun pittinik, eta inondik **ahalbaitean**, beste guziak bezain familiar izan nahi luke. Patziku Perurena

---

albaitero ik **albaitari**.

---

albaka ik **albahaka**.

---

albanes *iz* albaniarra.

Mazedonian gobernuaren eta **albanes** jazarleen artean ari diren solas aldiak biziki kenka gaixtoan ziren. Herria

---

albaniar **1** *izond/izlag/iz* Albaniakoa, Albaniari dagokiona; Albaniako biztanlea.

Aurreko gauean bezala, batzuk futbola ikusten gaude, hala nola hiru idazle **albaniarrak** eta euron urgazlea. Edorta Jimenez

Enrico Ponte veneziarrak hilabete behar izan zuen iristeko, Mediterraneoan pirata **albaniarrak** baitzebiltzan, su eta jo, bazterrak txikituz. Felipe Juaristi

"Lau pikari **albaniarren** soldata", erantsiko zidan, mingots, berrogei urte geroago, bere jaunaren -bere anaiaren- esker beltzaren kontaeran. Aingeru Epaltza

Egiptoren mendebaldartzea, Mehmet Ali **albaniar** abenturazaleak kristau-aroko hemeretzigarren mendearen bigarren laurdenean gauzatua, mende berean turkiar sultanek saiatu edo lortutako beste guztiak baino sakonagoa izan arren, usteldu egin zen ondorengoen pean. Iñaki Mendiguren

Albaniar jeneral hau, industria-garapenaren garrantziaz oharturik eta Frantziaren laguntzarekin, herrialdea modernizatzen saiatu zen, eta, hala, politika espansionista bideratu zuen, europar herrialdeena eredu hartuta. Koro Navarro

Mahaian, Jean Metellus eta biokin batera, Moldaviako Vasile Garnet, Maltako Oliver Friggieri (Lisboa da Liberdade hartan ezagutu nuena), Fatos Kongoli **albaniarra**, Anne Haverty irlandarra eta Haitiko zenbait idazle. Edorta Jimenez

Italiarren ondoren, **albaniarrak** dira ugarienak: 4.482 ikasle. Anjel Lertxundi

Ipar-ekialdeko anatoliar barrutiak, non akemenestarrek lurrak eman baitzizkieten pertsiar baroiei, Islamera konbertitutako **albaniarrez** kolonizatu zituzten osmanliarrek. Iñaki Mendiguren

Albaniarrek uko egin zioten hitzaldira joateri. Edorta Jimenez

2 *albaniar etnia*

Bestalde, **albaniar etniako** bi hautagai ere badira presidentziarako lehian. Berria - Mundua

3 *kosovoar-albaniar*

1999ko martxoan, Kosovoko gerraren garaian, 48 **kosovoar-albaniar** tiroz hil izana leporatu diete Serbiako segurtasun indarretako zortzi kide ohiri. Berria - Mundua

Kosovoar-albaniarrek nabarmentzen dute tokiko boterea dezentralizatzean zatiketa etnikoak eta enklabeen sorrera saihestu nahi dituztela. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
albaniar eta (6); **albaniar hil** (5); **albaniarrak dira** (7); **eta albaniarrak** (3); **idazle albaniarra** (4); **idazle albaniarrak** (4); **shehu idazle albaniarra** (3)

---

albaniera *iz* Albanian mintzatzen den indoeuropar hizkuntza.

Piamonteko Alpeetan, italieraz gainera, frantsesa eta franko-okzitaniera hitz egiten dira; okzitaniera, Piamonteko Alpeetan eta Calabriako komunan; alemana, Alto Adigen eta hainbat lurralde alpinotan; esloveniera, Friulin eta Alpe Giulietan; serbokroaziera, Molisen; greziera, Salento eta Calabrian; **albaniera**, Molisen, Campanian, Garganon, Lucanian, Calabrian eta Sizilian; katalana, Algheron eta Sardinian. Anjel Lertxundi

Herrialde batzuetan hizkuntzen nahasketa are handiagoa da; Mazedonian, imajina daitezkeen hizkuntza guztiak daude bertan: Turkiera, bulgariera, serbiera, greziera, **albaniera**, errumaniera eta abar, eta hizkuntza horiek guztiak era desberdinetan daude nahastuak, lurralde arau. Isabel Arrigain

Albaniera zatekeen edo serbiera, edo errusiera, poloniera agian, dena K eta Z hotz. Itxaro Borda

Nire lanen bat eta euskal antologiaren bat **albanieraz** argitaratzeaz hitz egiten dit. Edorta Jimenez

---

albaran *(corpusean ez dago; ETCn **139** agerraldi) iz* salgai bat jaso dela egiaztatzeko agiria.

Prentsaurrekorako oharren eta lurrindegiko **albaran** batzuen artean aurkitu nuen. ETC-literatura, saiakera

Albarana salerosketa batean eskatutako salgaiak zehaztu eta bezeroari helarazi zaizkiela egiaztatzen duen dokumentu agiri da. Salgaiak jasotzeko unean, **albarana** sinatu egin behar izaten du bezeroak. ETC-entziklopedia

Paperak, fakturak, **albaranak** dauzka pila batean. ETC-literatura, saiakera

Ateak itxi eta eman berri dioten karpetako paper gehienak gainetik irakurri ondoren, **albaran** itxurako paper sorta hori bat atera du eguzki-babesean dagoen arteka batetik. ETC-literatura, saiakera

Arretaz jantzi zuen laneko uniformea eta kontuz errepasatu arratsalde hartarako prestaturiko **albaranak**, kontrolen bat suertatuta ere. ETC-literatura, saiakera

Lana: lehenbizi tailer txiki hartako bulegoan, artean unibertsitatean hastekoa nintzela, **albaranak**, fakturak, kontuak, langileen larunbateroko paga kalkulatu eta prestatzen. ETC-literatura, saiakera

Eta berak, leihatila jaitsita eta motorra abian, gutun-azala ez ahazteko gogoraraziko dizu (zigilatu beharreko **albaran** bat bazenu bezala eskuratuko dizu). ETC-literatura, saiakera

Hasteko, **albaranak** jasotzen dira, eta han almazeneko arduradunak markatu ditu bai produktuak bai haiek jaso behar dituen bezeroaren datuak. ETC-literatura, saiakera

Errezelaren bestaldean behar zuen Nerudak, bere estatuatik ihesi, te hostoz kargatuta zihoazen zamaontzien **albaranak** irakurtzen. ETC-prentsa

Monttek 2008an, fakturak, nominak, **albaranak** eta produktuen izenak euskaraz emateko helburua du. ETC-prentsa

Aldatu beharreko agirien artean, zenbait inprimaki mota izango dira, esaterako, **albaranak**, fakturak, nominak, eta abar. ETC-prentsa

Sarrera-**albarana** jaulki behar da. ETC-zientzia, zuzenbidea

MARIA LUISA mahaietako batean eserita dago eta paper batzuei begira ari da: **albaranak**, fakturak, benketxeetako agiriak... ETC-telebista

GAIZKA.- Ba..., hoa mesedez bodegara, ea honi dagokion **albarana** aurkitzen duan nonbait. ETC-telebista

---

albarazale *izond* sediziosa.

Kasu honetan, **albarazaleak** hiritarren gehiengora erakartzea da bidezkoena, ez hiritarren gehiengoa **albarazaleengana**; bestean, berriz, pertsona zuhur eta lasai urriak **albarazaleen** artera sartu beharra dago; izan ere, halaxe geraraz daiteke likore baten hartzidura ere, beste baten tanta bakar batez. Iñaki Iñurrieta

---

albarda *iz* zamarien tresneriaren atala, haien bizkar gainean ezartzen den bi kuxin lotuk osatua. ik **basta**[1].

Erran dizut, izan ere, nola ibili nintzen egun hartan, desiraren **albardak** karga-karga eginik, imajinazinoaren labe gero eta beroagoan iduri lizun bati bertze bat zerraiola Joan Mari Irigoien

---

albarikoke *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi; orobat **abrikot** ETCn **83** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **abrikot** agertzen da) iz* abrikota. ik **albertxiko**, **mertxika**.

Zuhaitza oraindik berde dauden **albarikokez** gainezka dago. ETC-literatura, saiakera

"Hechurrezco Ratafia"-ren errezeta eskaintzen dizut irakurle maite, opari gisa, sasoinekoak ditugun **albarikokeekin** ratafia egin dezazun. ETC-prentsa

Honetaz ari ginela, duela egun gutxi ospatu dugun **albarikokearen** loraldiarekin gogoratu naiz. ETC-prentsa

Dela kontu pertsonalengatik, dela justizia moduren batengatik, ez dago egunik ez dudana norbait mentalki lurperatzen, beti demokraziaren joko-arauen barruan eta indarkeria oro gaitzetsiz: gaixotasun bat, auto istripu bat edo zintzurrean trabatutako **albarikoke**-hezur bat. ETC-prentsa

Beste zenbait fruitu erosi egiten ditugu: marrubi garaian, marrubia: **albarikoke** garaian, **albarikokea**... ETC-prentsa

Erabiltzen da, batik bat, tamaina txikiko elikagaiekin, esaterako, pikuak, datilak, **albarikokeak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Landare askotan dago, baina, batez ere, **albarikoke**, almendra mingots, sagar, melokotoi eta aranen hazietan. ETC-entziklopedia

Enpanadak aza, haragia, arraina, patata, limoia, mermelada, gaztanbera, **albarikokea** eta beste gauza batzuekin betetzen dira. ETC-entziklopedia

Fruta Viena: txokolatean bustitako **albarikoke** mamia. ETC-entziklopedia

---

albariño *(corpusean ez dago; ETCn **92** agerraldi) iz* Galizia hegoaldeko eta Portugal iparraldeko ardo zuri mota; ardo hori egiteko erabiltzen den mahats mota.

Arrainari laguntzeko moduko ardorik ba ote duen pentsatzen hasi denean, **albariñoren** bat edo, Lupek salto egin dio lepora kata-muxarra balitz bezala. ETC-literatura, saiakera

Goian ez dagoela giro erabaki du Besteirok, **Albariñoa** denontzat. ETC-literatura, saiakera

Irentsi aurretik mingainean bueltaka mantendu nuen **albariñoa**. ETC-literatura, saiakera

Txapela jantzita, betiko moduan, lotarako eta dutxatzeko beste ezertarako ez omen delako erantzi behar, izkira batzuk jaten ari zen, **albariño** zerutiar batez lagunduta. ETC-literatura, saiakera

Ander hotelean egongo da jada, zure zain, ardo zuria freskatzen jarrita; **Albariñoa**, zuri gustatzen zaizun bezala. ETC-literatura, saiakera

Albariño pixka bat ere ondo sartuko litzaizukeela otu zaizu eta damutu egin zara aurrez horretan pentsatu ez izanaz, ura besterik ez baituzu eskatu eztarria freskatzeko. ETC-literatura, saiakera

Albariñoa erruz, eta postrearekin, Calvados bana, hala nahi duenarentzat. ETC-literatura, saiakera

Sketch **albariñoz** egindako ardoa da, baina Rias Baixas jatorri izenetik kanpo. ETC-prentsa

Galiziarrak, berriz, beste sei boteila **albariño** eta katalandarrak, sei lagun. ETC-prentsa

Nork esango luke, adibidez, Penedesen **albariñoz** egindako ardoak eta hain bikainak aurkituko genituenik? ETC-prentsa

Zazpi hektarea baino ez dituzte, **albariño**, treixadura eta godello, zurietan: eta mencia, caiño beltza, brancellao eta souson, beltzetan. ETC-prentsa

Eskualde hau **albariño** ardoaren ekoizle nagusietakoa da. ETC-entziklopedia

"Rias Baixas" izeneko jatorrizko izendapena dauka ingurune honetako **albariño** ardoak 1988tik, arlo honetan O Salnes eskualde nagusia izanda. ETC-entziklopedia

---

albarka ik **abarka**.

---

albate *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)* **1** *iz* ubideetan eta kidekoetan, uraren igarotzea kontrolatzeko, trabeska ezartzen den ate modukoa; ik **konporta**, **uhate**, **ataska**.

Gainera, segurtasun neurrietara iritsi den Añarbeko urtegiko **albateak** irekitzean areagotu egingo da Urumearen emaria. ETC-prentsa

Bi piztiak tiroka eta kolpeka berotu zituzten, **albateak** ireki baino lehen, lehiatokira indar betean irten zitezen. ETC-prentsa

Isurketa egin behar dugunean, ontziaren **albateak** zabaltzen ditugu, eta beheko aldetik ateratzen da. ETC-prentsa

Mendi eskualde ezin hobea, bidexka bat errekaren parean, errementeriak euren zepa pilo beltzekin, urjauzi txikiak euren **albateen** ondoan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Askotarikoa da putzuen morfologia, baina oro har, lau motatan sailka daitezke: kanpoaldekoak, **albateekikoak**, berogailuak eta upelekikoak. ETC-entziklopedia

Putzuak bi motatakoak dira: baratzen azpian kokatutakoak, **albate** -putzu deitutakoak eta begi-bistan dauden kanpoaldekoak ETC-entziklopedia

2 *iz* eraikinetan eta baserrietan, nagusia ez den alboko atea.

Baina egongela barreneko **albatearen** ondoan gelditu zen, eskua brontzezko heldulekuan, eta ez zuen atea zabaldu eta jaitsi nahi izan. ETC-literatura, saiakera

Hantxe dago Seat 600a eramaten zuen tailerreko **albatea** . ETC-literatura, saiakera

Beheitiko **albatea** aitatxiren biltegia izandakoarena da; gibelaldean ukuilua zegoen. ETC-literatura, saiakera

-Egin zerbait - **albate** ondoko pikupetik erdi entzundako hura izan zen ordukoan bere sententzia. ETC-literatura, saiakera

Eztabaida entzuteko moduko distantziara ari zen Joseph, behiak jezten, argiontzi baten argitan, zeina zeremoniarik gabe kendu bainion, eta, goizean atzera bidaliko niola deiadar eginez, **albate** hurbilenera abiatu nintzen lasterka. ETC-literatura, saiakera

Horren markoak irtengune laua du eta ateko **albateak** burdinazko iltze-multzo bat. ETC-entziklopedia

---

albatros *iz* Ozeano Bareko hegazti handi luma-zuria *(Diomedeidae fam.)*.

Bere esanetan, pinguinoak, **albatrosak** eta antxetak izan dira espezierik kaltetuenak. Berria - Gaiak

---

albazea *iz* hildakoaren testamentua betearazteko eginkizuna duen pertsona.

Bazkaltzen hasi baino lehen, ene jaun administratzaileak eta **albazeak** ene testamentaren eta ene azken hitzaren berri emanen dizue, etxeko guztiak zaituztedala lekuko. Joan Mari Irigoien

Jorge Oteizaren **albazea** Carlos Catalanen aurka salaketa gogorrak egin ditu aste honetan Juan Ramon Corpas Kultura kontseilariak. Berria - Kultura

Familiak, agian jakinaren gainean egongo zarenez, sutara eman nahi izan zituen; haren **albazeak**, ordea -monje taoista edo budista bat-, ez zuen etsi haiek argitaratu arte. Juan Garzia

Agurtu egiten zaio berorri, Presidente jaun eta Antso Jakitunaren Testamentuaren **Albazea** : abuztuaren 13ko berorren eskutitza hartu izanaren adierazpena egiten diot; delako hori irakurri, hausnartu eta barneratu egiten dut, eta kablez hartu nituen instrukzioekin bat, ez-ikusia egiten dut, Luis Ortuzarri buruz berorrek esaten duenaz. Edorta Jimenez

---

albedo **1** *iz* gainazal batek jasotzen duen argi kopurutik, berriz islatzen duena.

Halako **albedo** planeta baten distira altuak ez dauka aurrekaririk, Saturnoren Enceladus ilargia kenduta. Berria - Gaiak

2 ***albedo geometriko*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Argizagi edo gorputz astronomiko baten **albedo geometrikoa**, gorputzaren benetako distira argiaren iturritik ikusten denean, disko egoki, erabat islatzaile eta lambertiar batekin (gurutzatutako zati berdinarekin) mantentzen duen arrazoia da. ETC-entziklopedia

---

albeni *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* oihalaren ertza.

Nolako baita ehaiten den ehuna eta oihala, halako izango da oihalaren **albenia** eta bazterra ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

albeniztar *izond/iz* Albenizkoa, Albenizko biztanlea.

Bost aldiz korritu du Espainiako Vuelta eta bitan Frantziako Tourra, eta haietan, talde lanean ere ondo moldatzen zela erakutsi zuen **albeniztarrak**. Berria - Kirola

---

albeolar **1** *izond* albeoloei dagokiena.

Hala, frantsesez r ubularra ahoskatzea baldin bada ohiko erabilera, halere, hiztun batzuek 'r' apiko-**albeolarra** ahoskatzen dute; eta hizkuntza ez da horregatik kaltetua gertatzen. Isabel Arrigain

2 ***hezur albeolar*** *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Neuroektodermotik eratorriak: ehun konektiboak eta garezurreko eta aurpegiko hezurrak, hortz-papila (hortz-mamia eta dentina sortzen duena) eta folikulua edo hortzetako zakua (lotailu periodontala, **hezur albeolarra** eta hortzaren sustraiaren zementua sortzen dituena). ETC-zientzia, zuzenbidea

Zementua, **hezur albeolarra** eta lotailu periodontala periodontoaren osagaiak dira eta, hortzaren lotailuaren bidez, hortza masailari edo masailezurrari loturik mantentzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

albeolo **1** *iz* bronkioen adarkadurek amaitzen diren barrunbe txikia.

Albeoloen barruan dagoen aireak askoz oxigeno gehiago du beste aldean kapilarretan barrena doan odolak baino. Irene Aldasoro

Albeoloen eta kapilarren artean dauden paretetatik zehar barreiatzen da oxigenoa odolera, eta, odolera ezkero, globulu gorrietako hemoglobina-molekulek harrapatzen dute berehalaxe. Irene Aldasoro

Hegazti gripearen H5N1 birusa aztertu dute, ordea, eta biriken barru-barruan egoten dela ikusi dute, **albeolotan**. Berria - Gaiak

Albeoloetako aireak baino karbono dioxido gehiago du kapilarretan zehar dabilen odolak. Irene Aldasoro

Lehenik, garbitu, epeldu eta hezetu egiten du arnasten dugun airea, biriketako barne-estaldura delikatua eraso termiko edo kimikoetatik babesteko ez ezik, airea birika barruko **albeoloetara** ahalik eta egoera onenean bidaltzeko ere bai. Irene Aldasoro

Horren ondorioz, odoletik biriketara pasatzen da karbono dioxidoa **albeolo**-paretatik. Irene Aldasoro

2 masailezurrean hortzak kokatzen diren barrunbeetako bakoitza.

Dardada bi modutan sor daiteke: mihiaren punta **albeoloen** gainean ezartzerakoan ("..." izendaturiko frantsesezko r-a), edo atzean mihiaren atzeko aldearekin (r"...é"). Isabel Arrigain

Hala, *b o e*-k esan nahi du, erabateko oklusioari dagokion irekidura graduarekin, b mihiaren punta, e goiko hortzen **albeoloen** kontra ezartzen dela. Isabel Arrigain

---

alberdania *iz* lotsaren, duintasunaren edo begirunearen aurkako jokaera.

Pelikulak Bambule izena hartu zuen, hau da, dantza, edo **alberdania**. Berria - Kultura

Gehienetan, **alberdaniaren** kontura, hitz "lohiak" esateko nolabaiteko debekuaren aurrean asmatutako saihesbidea, nonbait Iñaki Arranz

Ura edan, bainatu eta izugarrizko **alberdania** izaten omen zen han. Berria - Euskal Herria

---

alberdanian **1** *adlag* alberdaniaz.

Bikotea olgantzan eta **alberdanian** ibili zen, orain trufaka, orain laztanka, harik eta, ilunabarrarekin, nagusia mirabe jantzian agertu zitzaien arte. Patxi Zubizarreta

Euskaldunek ez dutela inork tentatu beharrik ondo jan-edan eta **alberdanian** ibiltzeko... Anjel Lertxundi

2 irud/hed

Mugagabeak, singularrak eta pluralak **alberdanian** dabiltzala, eta dirudienez, edonon, gauza jakina da. Iñigo Aranbarri

---

alberdaniatu, alberdania(tu), alberdaniatzen da *ad* alberdanian jardun.

-Inork ez dit egundaino eman irin-meta batean **alberdaniatzeko** aukerarik -erantzun zion kardinalak grinaize nabarmenez. Anjel Lertxundi

---

alberjinia *iz* baratze landare abartsua, hosto handi obalatuak eta lore handi moreak dituena, fruitu moreak edo zuri-moreak, jateko onak, ematen dituena.

Aguakate eta saltsifiekin entsalada prestatua zuen, eta gero udaberriko biribilkiak atera zituen, eta **alberjiniak**, irin-arrautzetan bildu eta binaka frijituak, tartean ardi-gazta xerra ipinita. Juan Kruz Igerabide

Gaurkoa, hogeita sei edo hogeita hamar bat urteko bat, bereziki amorragarri zitzaidan, ez hainbeste indioilar-lepo luze lumatuagatik, baizik eta kapelako xingolarengatik, **alberjinia** koloreko lokarri bat besterik ez baitzen. Xabier Olarra

---

albertxiko *iz* albertxikondoren fruitua, mertxikarenaren antzekoa baina hezurra leuna duena.

Andresek baratzea, madariondoak, **albertxiko**-arbolak eta granadondoak hostoz eta lorez beteta ikusi zituen. Josu Zabaleta

Gizajo hauek zainak ebakitzeko erabiltzen dute **albertxiko** hezurra. Koldo Izagirre

---

albertxikondo *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* albertxikoak ematen dituen arbola.

Leiho irekietan zehar **albertxikondoen** eta gereziondoen adarrak sartzen ziren, eta txoriren bat ere bai. ETC-literatura, saiakera

Mendian eta etxean fruitu gozoak ematen dituztenen artean Prunus generoko landare jendea erruz topatuko dugu: muxikondoa (Prunus persica), aranondoa (Prunus domestica), **albertxikondoa** (Prunus armeniaca), basagereziondoa (Prunus avium) [...]. ETC-prentsa

---

albetan *adlag* arnasestuka; azken hatsetan.

Arnasestuka hasi nintzen... **albetan** nengoen. Koro Navarro

---

albiente *iz* herrizaina.

Gordean dituzte lapurtu zituztenak, gogoratuko zara zure **albienteek** ez zutela, eginahalak eginagatik ere, lapurtutakorik aurkitu. Anjel Lertxundi

Hiriko **albienteetako** baten alabari urte eta erdi lehenago idatzitako bertsoak ziren. Aingeru Epaltza

---

albinismo *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi) iz* pertsonez eta animaliez mintzatuz, dagokion pigmentua faltan izatea, eta horren ondorioz kolore zurixka izatea.

Albinismoa melanina pigmentuaren ezak sortzen duen anomalia genetikoa da, gizakiak ez ezik, animaliek eta landareek ere izan dezaketena. ETC-entziklopedia

Egiaz, **albinismoa** eragin dezaketen hainbat gene daude, baina ni horietako bati buruz bakarrik ari naiz. ETC-literatura, saiakera

Afrikan munduko beste edozein lekutan baino **albinismo** kasu gehiago daude. ETC-prentsa

Albinismoa alterazio genetikoa da, arraza zuriari bezala baita beltzari ere erasan diezaiokeena. ETC-prentsa

Erabateko etenak **albinismoa** dakar, izan ere. ETC-prentsa

Albinismoa duten 250 pertsona bizi dira han, gobernuaren babespean. ETC-prentsa

José Letamendi doktorearen Klinika Ikastaroa jar daiteke aipatutakoaren adibidetzat; haren ustez, **albinismoa** berezko ahulezia antzeko baten adierazgarri ziurra zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

albino *izond* pertsonez eta animaliez mintzatuz, dagokion pigmentua falta zaiona, kolore zurixka duena.

Jiratu egin zen: betile zuri-zuriak zituen udaltzain gazte **albino** batek irribarre maltzurrez begiratzen zion Liubari. Jose Morales

2002. urteko Mofffou diskoak argi utzi zuen Salif Keita berriz zela Afrikako musikari handienetakoa, inguruabarrak gainditua (**albino** jaiotzea zorte txarrekotzat hartzen dute kultura askotan). Berria - Kultura

albiriste *iz* albiste ona.

Hartaz eta guztiz ere, gazteak Lisboako haizeak eta hango **albiristeek** puzturik zetozen. Edorta Jimenez

Basurtokoak esandakoa ez zen bete, ez baitzen iritsi Filiperen eta Elisabeten arteko bakearen **albiristea**; arkabuzak, mosketeak, pistolak, ezpatak eta enparauak hastekotan zen guda hartarako zeuden. Edorta Jimenez

Gaitzarena halaxe utzita, gazteek lehorretik zekartzaten gainerako **albiristeen** oihartzunek Ánimas karrakaren arima suhila arrapiztu zuten, zeren eta txaneltxokoekin berba urduri batzuk egiten amaitu baino lehen hantxe heldu baitzen beste ontzitxo bat, gure diruen kutxarekin eta armadako amabiaren aginduekin. Edorta Jimenez

---

albistari **1** *iz* mezularia; berriemailea.

Merkatuko botikes eta dendariek Rosarioren berririk ez zuten, **albistaria** nor izan, bakoitzak bere gisara zehazten zuen denbora batez geroztik: honako honek hamar, horrako horrek hamabi, harako hark hamalau egun, eta denek zera erantsirik: "gutienez". Aingeru Epaltza

Bai ederra mendi gainetan **albistaria** etortzen ikustea! Elizen arteko biblia

Nik jakinarazi diot lehendabizi Sioni, nik bidali **albistari** pozgarria Jerusalemi. Elizen arteko biblia

Oihanetik jalgiko zaizkio LUR ZAINAK, bapatean: SAFER, ELB, Euskal Herriko Berdeak, eskuineko, erdiko eta ezkerreko Euskal Herriko alderdi politikoak, abertzaleak, eskualdekatzelariak eta azkenean, azen ontzeko, kazetari, **albistari** eta berriketariak, asturu apur batekin... telebista! Herria

· Ontzi handien artean **albistari** zebiltzan ontzi txikiek kezkarazteko berriak zekartzaten. Edorta Jimenez

2 albiste orria

Harrigarria da, baina ikuskizunak ez digu, ez bakarrik teknikari gazteari, baizik-eta ezta neuri ere inolako zirrararik eragiten: film bat baita, edonork ikusi dituzkeen beste hainbat bezalatsukoa, asteko **albistari** horietako bat-edo. Joxe Austin Arrieta

Neure baitan irudikatzen dut -esan zuen, zio garbi-garbirik gabeko bizitasun halako batez- gizona bere ikerketa-gelan, hiri bateko dorre nagusian, esaterako, telefonoz, telegrafoz, fonografoz horniturik, irratitelefonogailuz, zinematografoz, linterna magikoz, hiztegiz, ordutegiz, arautegiz, **albistariz** ... Juan Garzia

---

albistaritza *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* albisteen sortzea.

Autonomia-Elkarteko adierazpideetan euskera suztatzea eta EITB-n euskerari indar ematea eta irratigintzan, **albistaritzan**, irudiaren eta hotsaren irarpidetan etabar, euskera suztatzezko eta babestezko neurriak hartzea jaurlaritzaren gain uzten ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

albiste *(ETCn **34.075** agerraldi)* **1** *iz* duela gutxiko gertaera baten adierazpena. ik **berri 3**.

Makur horiek ez ziren arratsalde osoan desagertu; eta gaur goizeko **albisteak** jakinarazi dit gaua orobat izan dela ekaitztsua. Jon Muñoz

Gure herri txiki urrunetik heldutako **albisteak**, aduanetatik pasatu gabe, kontrabandoaren ustekabe eta xamurtasunarekin ailegatuak. Joseba Sarrionandia

Albisteak zuzeneko ekintza-telefilm bilakatu dira. Txema Ramirez de la Piscina

Frances maiz joaten zen Parisera eta handik moda kontuetako azken **albisteak** ekartzen zituen. Fernando Rey

Kutz doktoreak begiratu bat egin zion egunkariko **albistearekin** batera zetozen bi argazkietako bati: Joxemari Iturralde

Jipoiaren ostean, emazteak barkamena eskatu zion senarrari eta senideak biziki poztu ziren **albistearekin**. Patxi Zubizarreta

Albisteak zapore mikatza utzi zion. Joan Mari Irigoien

Albistea ikasteak ez du ez oihurik ez madarikaziorik ekarri. Aingeru Epaltza

Amak ez du kezkaraziko duen ezer behar, aski kezkaturik egonen baita gerlatik heldu **albisteak** aditurik. Xabier Montoia

Albistea jakin bezain azkar gosaltzeari utzi eta aztoraturik heldu zenion ibaian gorako bideari. Hasier Etxeberria

Albisteak entzun nahi bagenituen, pantailaren inguruan eseri eta entzutera jarri behar izaten genuen. Koro Navarro

Irensten diren eta irensten ez diren **albisteen** artean bereizten ikasi behar diat... Lopez de Arana

Irudika dezakezu nolako **albisteak** izango genituzkeen gaur egun orduan bezala egingo balute irratiek? Pello Salaburu

Solomon jauna **albisteen** editorea zen, eta metodista. Koro Navarro

Bat-bateko bertsoak ikertzeko, ordea, ez da aski aldian behingo **albisteak** izatea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bera ere urduri zegoen enkarguetako mutikoak ekarritako **albistearekin**, baina ez zion bere buruari kezkak aldarrikatzeko eskubiderik aitortzen, eta ez zuen besteen aurrean itxurak egiten ibili nahi. Pedro Alberdi

Albisteak ahoz belarri zabaltzen dira espetxe batean, baina harrigarri arin. Koldo Izagirre

Herrian berehala jakin zuten kontu hura, eta **albistea** Pepponek berak eraman zuen ezohiko bilera batera. Koldo Biguri

Kableak guztiz buxaturik daude eta bertatik **albiste** bat bera ere ezin da pasa. Lopez de Arana

Gauean eman zidan Gaizkak **albistea**, bileraren batetik etxerakoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Ahoz aho entzun ditudan **albisteen** arabera, artzainen artean ere izan dira horrelako gertakariak. Koldo Zuazo

Unibertsitateko korridore luzeetan, Condrenek, Sorbonako doktore eta predikatzailerik suharrenak irri egin zion sasi **albisteari**: Aingeru Epaltza

Haurrek orduan lapurtutako egunkariak saldu nahi zizkieten tranbiako bidaiariei eta oihu egiten zuten: Carmen Mirandaren gaineko azkeneko **albisteak**. Pello Lizarralde

Hemen beratzen zituan **albisteak**, baba lehorrak iturriko uretan bezala, bigundu eta digeritzeko moduan egon arte. Anton Garikano

Hainbat gauza esan daitezke orain berari buruz; beste hainbeste, aldiz, esateke geratuko dira; baina ni kazetari hutsa naiz, eta **albisteak** kontatzera mugatzen da kazetariaren lana. Aritz Gorrotxategi

Hori dio **albisteak**, banpiroak eta lobizonak edo otso-gizonak nahastuz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nik kiroletatik hasten nuen egunkaria, arraunari buruzko **albisteak** irakurtzeko. Lander Garro

Une horretan telebistan kirol-berriak ari dira ematen, futbolari bati buruzko **albisteak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Pozgarria izan zen **albistea**, eta Egunkariaren ibilia ikusita, itxaropentsu egotekoa. Koldo Zuazo

Berehalaxe zabaldu zen **albiste** hau hiri guztian. Askoren artean

2 (izenondoekin)

Baina Wendyk, **albiste** pozgarria modu goxoagoan eman behar zutela iritzita, plan hobea zeukan. Julen Gabiria

Eta nire historia irakurtzen segitzen duzuen horiek, oraindik ere esna bazaudete, orain ikasiko dituzue **albiste** interesgarri batzuk. Fernando Rey

Albiste garrantzitsu bakarra hirugarren egunaren bukaera aldera iritsi zitzaion, Gipelli zenaren emazteak eramanda. Koldo Biguri

Gauzak horrela - ez genuen nahi baina -, beste **albiste** txar baten atarian geundela zirudien, egoerak eztanda egingo zuela nondik edo handik. Patxi Iturritegi

Burtsak, epe luzeko tituluentzat eskaturiko etekinen goraldiak desorekaturik, munduko ekonomiari buruzko **albiste** pesimistek zoratuta, behera eta behera joan ziren. Koro Navarro

Horregatik, gogoz kontra, etxera itzuli naiz, etxean **albiste** txarren bat, gutun edo gaztigu txarren bat izango nuen susmoz. Josu Zabaleta

Fionarengana hurbildu zara, eskuineko zutabeko **albiste** txikia hobeto irakurtzeko asmotan. Lutxo Egia

Ebanjelari, izø **Albiste** onak eramaten dituena, bereziki (zentzu erlijiosoan) gure salbazioa eta gure auzoen kondenazioa ziurtatzea, esate baterako. Xabier Olarra

Albiste kezkagarriak puztu egiten zituen egunero. Karlos Zabala

Horrelakoak ikusi eta entzunen dituzu, beraz, espantu eta laudorio gehiagorekin, Francisco Franco gure herrian ageri den **albiste** dokumentala ikusteko parada baldin

badaukazu. Koldo Izagirre

Hor goiko nire zalantza eta dudak argitzen lagundu zidalako (halere, ez dut esana eta idatzia zuzendu nahi izan) eta **albiste** pozgarriari zor diodan eskerrona azaleratu nahi dudalako, hementxe, bere horretan, utzi nahi nuke Andoaingo Udalak, bere seme kutun Rikardo Arregitarraren omenetan ematen dituen sarien oroimenezko agiria. Pello Zabala

Albiste entzungarria, inondik ere. Antton Olano

Harryk erdi esana zidan ezusteko bat izango zela, baina ehun aukera eman izan balizkit ere zer zen asmatzeko, ez niokeen sekula igarriko ahotik lasai-lasai jaulki zuen **albiste** harrigarriari. Oskar Arana

Haizeak harea mortutik ekarri eta zokoetara hedatzen duen molde bertsuan hedatzen dituzte lotsa eta izua **albiste** odoltsuek zuen artean. Xabier Montoia

Baten batek irratian entzun duela, sukaldari bati senarrak telefonoz aipatu diola, **albiste** zuzena inor gutxik jakin arren azkar asko zabaldu da udalekuan, ahoz aho, mailaz maila, zaharrenetatik hasita gazteenetaraino. Xabier Mendiguren Elizegi

Albiste onak zituen emateko, eta irrikan zegoen noiz emango. Josu Zabaleta

Yumimoto konpainiako kide bakar batek ere ez zuen bertsio hori onez irentsiko: nire kastako langileengandik espero zen **albiste** hoberena zen, hain zuzen ere, enpresa utzi nahia. Joxan Elosegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Biharamunean, alderdiaren egoitza aurretik pasatzean, On Camillok Anconako istorioari buruzko **albiste**-ebakina eta arrautzaren argazkia ikusi zituen horma-egunkarira josita. Koldo Biguri

Baina legezko galdeketa batek jaun hori erabat errugabe aitortu baitu, eta gure **albiste** emaileen argudioek, sakonak baino areago, kartsutasunez beteak diruditenez gero, ez deritzogu egoki argudio horiek publiko egiteari. Koro Navarro

Eguneroko albistegian ale berriak goizero sortzen dizkiguten bezalaxe, gaur egun bakoitzak **albiste** ale berriak ekartzen dizkigun bezala, batzuk hobexegoak eta pozgarriak, besteak txarrago eta kaxkalagoak. Pello Zabala

Jaiki, irratia piztu eta eguneko **albiste** niagara entzunez egon naiz ia ordu betez. Joseba Sarrionandia

Ez zen, ordea, Baiona kinka horretan zegoen hiri bakarra: han-hemendik tarteka heltzen zitzaizkien **albiste**-soinu nahasien esanetan, gainezkaturik zeuden Ebrotik Lorenara bitarteko ia ibai guztiak. Anjel Lertxundi

4 *albiste agentzia*

Hala iragarri zuen astelehenean Efe **albiste agentziak**, ikastetxeetako iturriak aipatuz. Berria - Euskal Herria

Bosniako Tanjug **albiste agentziak** ere zabaldu zuen atxiloketaren berria. Berria - Mundua

Jimenezen arabera, **albiste agentzia** zenbaitek frantsesezko bertsioa hartu zuten aintzat gaztelerara itzultzeko. Berria - Ekonomia

Baina Bulgariako **albiste agentziak** atzo jakinarazi zuenez, Zdravko Georgiev Bulgariako medikuari lau urteko kartzela zigorra ezartzea erabaki zuen epaileak. Berria - Gaiak

Albiste-agentziak apartak dira euren saski-naskian horrelako "albisteak" biltzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez dakigu, baina **albiste agentziaren** arabera, ez dirudi hala ez denik. Iñigo Aranbarri

5 *albiste eman*

Memorietan homosexualitatea, drogak eta alkohola zirela kausa izandako arazoen **albiste eman** zigun. Berria - Kultura

Albiste eman nahi dizuet atzo, 9: 35etan, motozikletatik oso modu txarrean erortzen hasi nintzelarik, gogoratu nintzela ezen errealitatea ez dela existitzen. Anjel Lertxundi

Zer janik eta zer edanik ez daukan 20 milioi pertsonari buruz aritu zitzaidan eta, gutxi barru, nazioartean piztuko den gerra itzel baten **albiste eman** zidan. Hasier Etxeberria

Rodela bat eskuratu zuen era berean bere lagun bati zorretan eskatuta eta bere zelata hautsia ahalik ongiena konpondu ondorean, **albiste eman** zion bere ezkutari Santxori zein egun eta zein ordu erabakiak zeuzkan, bidean abiatzeko. Patxi Ezkiaga

Baina hara non, liburua argitaratzeko puntuan zelarik, neu izan ninduan, neu!, Gianni Rodari izeneko idazle italiarrak argitaratu berri zuen Grammatica della fantasia izeneko liburuaren **albiste eman** niona. Anjel Lertxundi

Istant bat lehenago desagertutako paisaiaren **albiste eman** zizun Leonek harrapatutako argi hark. Hasier Etxeberria

Triestera iritsi berri den James Joyce izeneko idazle irlandar luze argal baten **albiste eman** du sandiak... Anjel Lertxundi

Otorduan, bulego-geletan zerbitu baitzidaten bazkaria salbuespen gisa, irratiak **albiste eman** zuen japoniarrek Pearl Harbor-i eraso ziotela eta Japoniak gerra-aldarrikapena egin zuela Estatu Batuen aurka. Juan Garzia

6 *albiste labur pl*

Lehenengoan, baina, artikuluen erdia **albiste laburrak** izan dira; bestean, aldiz, %27 ziren laburrak. Berria - Gaiak

Era guztietako testuak azaltzen dira, hilabeteroko maiztasun laxoan emanak: poesia eta narratiba testuak dira nabarmen ugarienak, artikulu eta **albiste laburrak** badira, inkestak, elkarrizketak, txisteak, iragarkiak... Jokin Urain

7 *albiste zerbitzu*

Agiriaren berri Der Spiegel aldizkari alemaniarraren webguneak eta Elaph **albiste zerbitzu** arabiarrak eman zuten aurrena. Berria - Harian

Nazioarteko **albiste zerbitzu** nagusiek hiru egunean egin diote jarraipena gaiari, eta hauen oihartzuna heldu zen, astelehenetako edizioetan batez ere, munduko egunkari ugarietara. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

albiste agentzia (3); albiste agentziak (20); albiste agentziako (3); albiste agentziaren (4); albiste agentziaren arabera (4); albiste agentziari (4); albiste agentziei (3); albiste agentziek (3); albiste argitaratu (6); albiste asko (3); albiste baikorra (4); albiste baikorra da (3); albiste bakarra (5); albiste bat (32); albiste bat entzun (3); albiste bat ere (4); albiste batean (4); albiste batek (6); albiste baten (5); albiste bati (3); albiste batzuk (9); albiste beltzak (3); albiste berriak (4); albiste bihurtu (5); albiste bikaina (9); albiste bikaina da (3); albiste da (6); albiste edo (4); albiste eman (12); albiste ematen (3); albiste eta (10); albiste ez (4); albiste garrantzitsua (3); albiste gehiago (5); albiste guztiak (7); albiste handia (5); albiste hau (23); albiste hau eman (3); albiste hau zabaldu (3); albiste honek (4); albiste honekin (3); albiste hori (20); albiste horiek (9); albiste horrek (7); albiste horren (6); albiste horren arabera (3); albiste hura (4); albiste iturri (5); albiste izan (11); albiste izaten (4); albiste labur (3); albiste nagusi (5); albiste nagusia (3); albiste on (15); albiste on bakarra (3); albiste on bat (6); albiste ona (109); albiste ona da (43); albiste ona dela (17); albiste ona izan (3); albiste ona izango (3); albiste ona jaso (6); albiste ona litzateke (3); albiste ona ote (3); albiste ona zen (6); albiste onak (25); albiste onen (4); albiste onena (3); albiste onik (4); albiste ontzat (3); albiste ontzat jo (3); albiste oso (4); albiste oso ona (3); albiste pozgarri (3); albiste pozgarria (17); albiste pozgarria dela (5); albiste pozgarria litzateke (3); albiste txar (8); albiste txar bat (4); albiste txarra (25); albiste txarra da (5); albiste txarra dela (5); albiste txarrak (15); albiste txarren (4); albiste txarrik (3); albiste zehatzik (3); azken albiste (6); azken orduko albiste (3); baina albiste (4); batean albiste (3); bateko albiste (3); baten albiste (11); baten albiste eman (3); beste albiste (14); beste albiste bat (5); bi albiste (3); buruzko albiste (8); da albiste (34); da albiste ona (8); dela albiste (3); den albiste (3); dira albiste (12); dira albiste txarrak (3); diren albiste (9); ditu albiste (3); du albiste (7); duen albiste (5); dute albiste (3); duten albiste (3); edozein albiste (3); efe albiste (12); efe albiste agentziak (7); efe albiste agentziari (4); eguneko albiste (3); egunkariko albiste (3); erabakia albiste (4); ere albiste (9); ere albiste ona (3); eta albiste (23); eta hori albiste (5); etena albiste (3); etena albiste ona (3); ez da albiste (17); ez dira albiste (5); futbol albiste (3); gaineko albiste (5); hain albiste (3); hainbat albiste (4); hori albiste (9); hori albiste ona (7); hori oso albiste (3); horren gaineko albiste (3); inguruko albiste (8); izan da albiste (4); izana albiste (8); izana albiste ona (4); izana albiste pozgarria (3); izatea albiste (7); izatea albiste ona (5); lehen albiste (3); orduko albiste (4); osasunarentzat albiste (4); osasunarentzat albiste ona (3); oso albiste (17); oso albiste ona (13); su etena albiste (3); vilaweb albiste (3); zen albiste (12); zer albiste (3); zientzia albiste (4); zientzia albiste argitaratu (3); ziren albiste (3); zuen albiste (16)

albistea baieztatu (6); albistea baino (3); albistea berretsi (4); albistea berria (3); albistea bolo (4); albistea bolo bolo (4); albistea da (10); albistea ekarri (3); albistea eman (15); albistea emateko (4); albistea ematen (3); albistea entzun (5); albistea eta (7); albistea ez (11); albistea ez da (3); albistea ez zen (3); albistea ezagutu (3); albistea gezurtatu (3); albistea irakurri (3); albistea iritsi (5); albistea izan (8); albistea izan zen (3); albistea jakin (22); albistea jakin bezain (5); albistea jakin nuenean (3); albistea jakin ostean (3); albistea jakin zutenean (3); albistea jakinda (3); albistea jaso (4); albistea jasotzean (3); albistea ona (3); albistea pozgarria (4); albistea zabaldu (7); albisteak ekartzen (4); albisteak ematea (3); albisteak ematen (5); albisteak entzun (6); albisteak entzutean (3); albisteak entzuteko (5); albisteak ere (6); albisteak eta (7); albisteak ez (17); albisteak ez du (3); albisteak ez zuen (4); albisteak jakiteko (3); argitaratu zuen albistea (5); argitaratutako albistea (3); argitaratutako albisteak (3); atzo albistea (6); azken albisteak (11); baina albistea (3); baina albisteak (4); baten albistea (3); buruzko albistea (5); buruzko albisteak (16); da albistea (8); den albistea (5); diren albisteak (6); ditu albisteak (3); du albistea (17); duen albistea (8); dut albistea (5); dute albistea (14); duzue albistea (3); eman du albistea (3); eman zuen albistea (7); emandako albistea (5); eta albistea (6); eta albisteak (18); eten iraunkorraren albistea (3); ez da albistea (3); ez zuen albistea (4); gabeko albisteak (3); halako albistea (3); hartu du albistea (3); hartu dute albistea (7); hartu zuten albistea (4); heriotzaren albistea (8); horrelako albisteak (6); inguruko albisteak (3); iraunkorraren albistea (4); izan zen albistea (3); jaso dute albistea (3); jaso zuten albistea (4); lehen albistea (5); lehen albisteak (4); lehenengo albisteak (3); nuen albistea (5); zabaldu zen albistea (4); zen albistea (20); zenuen albistea (3); zituen albisteak (3); zuen albistea (36); zuen albisteak (4); zuen atzo albistea (5); zuten albistea (21)

albistearekin batera (4); **albistearen arabera** (6); **albistearen berri** (16); **albistearen berri eman** (5); **albistearen berri emateko** (3); **albistearen trataeran** (3); **albisteek ez** (6); **albisteek ez dute** (4); **albisteen arabera** (10); **albisteen artean** (4); **albisteen berri** (9); **albisteen inguruan** (3); **albisteen zain** (10); **azken albisteen** (7); **azken albisteen arabera** (3); **azken orduko albisteekin** (3); **buruzko albisteek** (4); **diren albisteen** (4); **eta albisteen** (6); **nazioarteko albisteen** (3); **orduko albisteekin** (3); **ziren albisteen** (3)

albisteren bat (5); **albisterik ez** (9); **albisterik ezean** (3); **albisterik izan** (5); **albisterik onena** (6); **albisterik pozgarriena** (4); **beste albisterik** (3); **buruzko albisterik** (6); **buruzko albisterik ez** (3); **da albisterik** (3); **haren albisterik** (3); **honen albisterik** (3)

---

albistegai *iz* albistearen gaia.

Logelaren erdian zegoen moketa zati batean aritzen ginen: uharte hura zen borroka eremua, eta, jakina, bitan zatituta zegoen (garai hartan Zipreko gerra eta banaketa ziren **albistegai**). Iban Zaldua

---

albistegi *iz* irratiko edo telebistako programa, albisteak ematen direna.

Handik aurrera ez genuen Marcel Martinen diskorik gehiago jarri, ezta bere izenik aipatu ere, harik eta telebistako **albistegi** batean auziko epailearen erabakia, artistaren gorpuzkiak ateratzekoa, eman zuten arte. Ramon Saizarbitoria

Gaztelaniazko kateko **albistegiak** aurkeztu zituen Iurretatik. Berria - Euskal Herria

BBC kateko **albistegi** batean gertatu omen zen: esataria agertu, "gaur ez da ezer gertatu" esan, eta saioa bukatu egin zen. Berria - Euskal Herria

Eta **albistegi** honi amaiera emateko, gatozen kiroletara. Aingeru Epaltza

Albistegia ikustera joana nintzen, baina ez nizuke esango zer eman zuten. Xabier Olarra

Zer edo zer berria esan al du **albistegiak**? Pedro Alberdi

Albistegietako izar izateari utzi nion une batez eta irribarre egiteko baliatu nuen unea. Hasier Etxeberria

Nire alboan zegoen eserita Benita, Ritaren ama, ni bezalaxe **albistegiei** begira. Hasier Etxeberria

Prentsako lehen orrialdean eta **albistegietako** sumarioan agertzea da helburu. Txema Ramirez de la Piscina

Markinako zein Orozkoko **albistegietan** *-kaz* atzizkia erabiliko da sarri soziatibo pluralean, nahiz eta *-kin* izan Lea-Artibai eskualdean eta Durangaldean zabalduen dagoena. Koldo Zuazo

Elkarrizketak, **albistegiak** edo dokumentalak jartzen baditugu pantailan batzuek uste dute apalesten dugula telebista, eta euskal mundua gutxiesten, ikusle gutxiago izateko arriskua ekarriko bailuke horrek, baina zerbitzu publikoek badituzte beti beren mugak eta ez dugu ibili beharrik teleikusleen merkatu antzu horretan nor baino nor gehiago, nahi eta ezin. Pello Salaburu

Horrenbestez, Literatur Aldizkarien Gordailua-k (29 aldizkari), kritiken hemerotekak, Literatur Emailuak asteroko **albistegi** elektronikoak eta Zaldi Erok idazleen argazkiekin eginiko bildumak osatzen dituzten atalez gain, euskaraz irakur eta goza daitekeen literaturari begirako gordailua eratu du Susak. Berria - Kultura

Orduoro albistegiak egongo dira eta 14:00etan **albistegi** nagusia. Berria - Euskal Herria

Albistegi bereziak irrati eta telebistetan. Berria - Harian

Handik gutxira, telebista eta irrati guztiek **albistegi** bereziz josi dute igande bazkalostea. Iñigo Aranbarri

Albistegi guztietan agertu ziren Hansen hiletaren irudiak. Hasier Etxeberria

Gaueko **albistegien** ostean, zoratu baino lehen, ohera joatea erabaki nuen. Hasier Etxeberria

"Komunikatzaile ona" esaten zaio hiruretako **albistegia**, zintzo askoa, aurkezten digun buru mintzodun horri. Txema Ramirez de la Piscina

Osama Bin Laden Pakistanen atxilotu dutela adierazi zuten atzo Irango irrati publikoan, paxtuerazko **albistegian**. Berria - Mundua

Horri esker jaso genuen **albistegi** hasierako berria: azterketa biologikoen arabera, Isabelle Parmentier ez zen Marcel Martin kantari eta aktorearen alaba. Ramon Saizarbitoria

Kazeta gunea ere izango da, Internet gunea eta zine **albistegia**. Berria - Euskal Herria

Zine-**albistegi** bat aurkitu nuen ospitale ondo-ondoan, eta emaztea berarekin zegoen bitartean, ni hara joaten nintzen kirol-berriak aditzera, eta gero buelta bat ematen genuen. Xabier Olarra

Futbola futbola besterik ez dela esatea gehiegizkoa izango da agian, egunero egunkariak eta telebista **albistegiak** hainbeste betetzen dituen kirola izanik. Berria - Kirola

Eta frogarik ezaz, ez diot sinesten, Nodo **albistegi** ofizialean ere Francoren sarrera filmatu gabe gelditu izana nahikoa froga izan litekeen arren. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

albistegi batean (4); **albistegi guztietan** (4); **albistegietan agertu** (3); **gaueko albistegien** (3); **telebistako albistegi** (4)

---

albistetxo *iz adkor* albistea.

Noiztenka **albistetxo** bat hemendik edo handik iristen zen ene belarrietara. Txillardegi

Halere, hiru adarño horien okerra gozatuko zuen **albistetxo** goxoagorik ere jaso izan nuen: alegia, Errioxa barrenetik, edo Nafarroako Erribera eta Lizarra aldetik, hala nola Arabako barnealdenetatik ere zorionak ematen zizkidatenen poza. Pello Zabala

Bere ibilerei buruzko berri gutxi ematen zuen, baina beti baliatzen zuen ama lasaitzeko **albistetxoren** bat. Anjel Lertxundi

---

albita *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* feldespato mota, aluminio eta sodio silikatoz osatua, gehienetan zuria.

Aplitoa osatzen duten mineral zehatz batzuk mikroklina, **albita**, pertita edo ortosa ortoklasa dira. ETC-entziklopedia

Plagioklasak (feldespato kaltziko edo sodikoak): triklinikoak direnak, adibidez **albita**, labradorita eta anortita. ETC-entziklopedia

Sarritan, **albitak**, kaltzitak, eta piritak makla polisintetikoa erakusten dute. ETC-entziklopedia

Plagioklasa **albita** (NaAlSi3O8) eta anortitaren (CaAl2Si2O8) artean dagoen soluzio solido isomorfismo isomorfoari deritzo. ETC-entziklopedia

Soluzio solido bat denez, %50 eta %70 bitartean **albita** du (NaAlSiO3) eta gainontzeko guztia anortita (CaAl2Si2O8). ETC-entziklopedia

---

albitar *izlag/iz* Frantziako Albi hirikoa, hiri horretako biztanlea; gehienbat Frantziako hegoaldean hedatu zen Erdi Aroko doktrina bati dagokiona; doktrina horren jarraitzailea. ik **kataro**.

Albitar edo kataroak (garbiak) 1150 inguruan arras zabalduak zeuden Frantzia hegoaldean, Albi hiriaren inguruan (hortik **albitar** izena). Askoren artean

Frantziskoren egunetan gertatu zen Frantzia hegoaldean **albitar** edo kataroen aurkako gurutzada odoltsua ere. Askoren artean

Frantziara iritsi ziren anaiek, **Albitarrak** al ziren galdetu zitzaienean, baietz erantzun zuten, ez baitzekiten **"Albitarrak"** zer ziren, ezta heretikoak zirenik ere, eta beraiek ere heretikotzat hartu zituzten. Askoren artean

Frantzia iparraldeaz ari da, Herbehereak barne, Frantzia hegoaldean **albitarren** heresia hedatua baitzegoen. Askoren artean

Pentsamendu heretikoen aurkako borrokak triskantza beldurgarriak eragin zituen Euskal Herrian XIII. eta XIV. mendeetan: **albitarren** aurka Nafarroan, 1324an juduen kontrako sarraskia eta, entzutetsuena agian, Durangoko heretikoen suntsitzea ekarri zuena (1440-1450). Askoren artean

Albitarren aurkako gurutzadaren hasiera. Askoren artean

albitz *(corpusean ez dago; ETCn 44 agerraldi)* **1** *iz* landare belarkara, Ipar Hemisferioko eskualde epeletan zabalduta dagoena *(Brachypodium pinnatum)*.

Jardueran egingo diren jokoen artean, lizarraren egurra erabiliz txilibituak sortzea dago, adibidez: eta **albitza** landarea erabiliz, txistua egitea. ETC-prentsa

Neguko **albitz** lehorrari udaberriko belar gordinak hartu zion txanda. ETC-literatura, saiakera

Horma zaharren pitzaduretan, harlauzen artean, gargola baten bizkarrean edo balkoi baten azpian jaiotzen diren **albitz** eta belarren izenak ere esan zizkion pasaeran. ETC-literatura, saiakera

2 *albitz belar* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Albitz edo **albitz-belar** ("Brachypodium pinnatum") Poaceae familiako landare belarkara da, Ipar hemisferio Ipar Hemisferioko eremu epeletatik zabalduta dagoena. ETC-entziklopedia

Pirinioetako zenbait tokitan, **albitz belarra** izeneko landare gramineo autoktonoa oso modu erasokorrean zabaltzen ari da, eta berezko beste zenbait espezieri kendu die tokia. ETC-prentsa

Alabaina, urtero segatzen ez badira, **albitz-belarrak** larre hauek kolonizatzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

albizturtar *izlag/iz* Albisturkoa, Albisturri dagokiona; Albisturko biztanlea.

Pariskeria bat iruditu zitzaidan, eta azoka hartan ibili ziren nire arbaso asteasuar eta **albizturtarrek** kalte-ordaina merezi zutela pentsatu nuen. Bernardo Atxaga

---

albo *(ETCn 32.204 agerraldi)* **1** *iz* zerbaiten edo norbaiten eskuineko edo ezkerreko aldea. ik **aldamen**; **alde**.

Arratsalde batez, ordea, **albo** baten loditasuna haztatzen ari nintzela, han gordetegiren bat egon behar zuela ohartu nintzen. Josu Zabaleta

Emakumeak, espero bezala, **albo** batean zeuden; gizonezkoak, emakumeen aurrean, beste aldean. Felipe Juaristi

Albo bakoitzean, soldadu bana. Felipe Juaristi

Albo batean Alfa eta bestean Omega letrak dituen atea. Edorta Jimenez

Zaldiek aurreko hankak jaso zituzten eta, **albo** batera eta bestera mugiturik, mehatxu egin zioten inguruko jendeari. Anjel Lertxundi

Obispoa, lan-jantzia eskuetan, **albo** batera eta bestera begiratu eta geldi-geldi zegoela ikusita, ea zeren zain ote zegoen galdetu nion. Inazio Mujika Iraola

Aitak errepidearen **albo** bietara hedatzen ziren soro izoztuetara begira iraun zuen une luze batez. Alberto Ladron Arana

Udaletxearen **albo** bietan guardia zibil furgoi bana zegoen aparkatuta. Pedro Alberdi

Albo bietako errezelen atzean logelak zeuden; ohe onak, garbitzeko murko eta tresnekin. Agustin Otsoa

Haren zinemetan, pantaila erraldoitik oso gertu - **albo** bateko gortinaren atzean Mar-en, eta pantaila atzean bertan Ideal-en- piano bana zegoen. Josu Landa

Elizaren **albo** batean, horma-hobi bat. Anjel Lertxundi

Urka-bilurren ezkerraldera, oholtzaren **albo** batean, gizon patxadatsu bat zegoen, ahoan zeukan buztinezko pipari xurga eta xurga. Anjel Lertxundi

Samek erne jarraitzen zuen bere etxeko **albo** bati begira, pijamaren galtzak zapata zuri-marroien gainetik aski goratuta. Koro Navarro

Bestela, gaitz izango zitzaidan beharrok egitera neurez joatea, zela brankaga edo masprezaren aldera, zela txopako gazteluko **alboetara**. Edorta Jimenez

-Patataren alde! - **albo** bietara soraio begiratu zuen besteen erreakzioaren zain. Josu Landa

Halako batean, garrasi zorrotza eginez, **albo** batera erori zen: gezi beltz batek alderik alde zeharkatu zuen. Agustin Otsoa

Lavenderrek eta Parvatik oso hunkituta ematen zuten, eta **albo** batera mugitu ziren Trelawney andereñoari haien mahaian jar zedin lekua uzteko. Iñaki Mendiguren

Premonizio moduko batek eraginda, **albo** batera bota zuen gorputza. Joanes Urkixo

Azkenean, autoak **albo** batera egin zuen tupustean errepideko zirkulazio artean. Mirentxu Larrañaga

Txalupek **albo** batetik abordatu dute gabarra. Karlos Zabala

Tira **albo** batetik, bestetik berdindu ari nintzela, ama sartu zen logelan. Anjel Lertxundi

Kaleak oso luze eta bihurriak dira, eta **albo** bakoitzean artile-hari distiratsuz egindako xendak dituzte. Julen Gabiria

Amona Sinforosak, orduan, eskuan zuèn zurezko koilara gora altxatu, eta aluminiozko eltzearen **alboa** astindu zuen, amorru handiz halaxe esaten zuela: [...]. Joan Mari Irigoien

Aldapa neketsua jaitsi zuten ondoren, mendiaren oinalde dardarkarira iritsi zirenean, Sammath Naurek lurrun eta kezko txurruta bota zuen, konoaren **alboa** arrakalatu eta, uholde geldo eta gorgarria osatuz, goitikin eskerga eta goria amildu zen mendiaren mendebaldeko aldapan behera. Agustin Otsoa

Gustua eta gustu ezaren sentsazioa, dena den, ez da beti berdina, gorabeherak ditu, batzuetan **albo** baten alde, bestetan beste **alboaren** alde, baina egia esan eskuineko aldean sentitzen da hobekien. Jon Alonso

Ezkerreko **alboaren** gainean etzanda zegoela, sorbaldek eta aldakek egiten zituzten angeluak ezberdinak ziren, antza, gorputz-enborraren okerdura zela eta. Ibon Uribarri

Beste **albora**, itsas aldetik urrundu eta mendi urrunetarantz gora egiten zuen haran txiki bat. Joanes Urkixo

Aldika, ordea, ezustean jaiotako itsas zartada sekulako batek ontziaren **alboren** baten kontra jo, ontzigaina alderik alde igaro, eta belaontziko zuraje osoak egundoko karraka egiten zuen, hondatutako esku-soinu erraldoi bat bihurturik. Anjel Lertxundi

2 (pluralean)

Ene, bada!, lokatzez beterik dauzkazu bizkarra eta bi **alboak**, jauna. Jose Morales

Gizakiak 20 urte bete arte behar bezala garatu gabe izaten ditu burmuinaren **alboak**. Berria - Euskal Herria

Bilarreko bolak mahai-tapiz berdearen **alboak** jotzen dituen bezala, hala zebilen, behin eta berriz boteka, Ruche jaunaren esaldia Jonathanen gogoan. Jon Muñoz

Enbarkazioak ura branka bularraz jo eta erdibituko du, ur erdibituak bitsa altxatuko du eta apar kizkurtu horrek, enbarkazioaren **alboak** igurtzi ondoren, lorratz zurixka utziko du atzean. Joseba Sarrionandia

Ohe ondoko mahai biribil baten gainean zegoen basoko urak ikara egin zuen, hala iruditu zitzaidan, atea itxi zenean, eta basoaren **alboak** miazkatu zituen. Koro Navarro

Ertzak zituen, eta oinarria eta **alboak** zurezkoak. Elizen arteko biblia

Gero, abere-odola hartu eta aberea jango duzuen etxeko ategainak eta **alboak** odoleztatuko dituzue. Elizen arteko biblia

Nire ahots lasaiaren durundia biribilduz eta handituz joan zen leku hartan, harik eta oihu barne-hutsa bihurtu zen arte, inguruko haizeak oskol bat edo barrunbe bat eraiki balu bezala, teilatua eta **alboak** urdinak eta ukitu ezinezkoak zituen oskol bat, ortzi biribila bezain altua eta hutsa, non trumoien pare igo baitzen antxeta hegaldarien zarata. ur erdibituak bitsa altxatuko du eta apar kizkurtu horrek, enbarkazioaren **alboak** igurtzi ondoren, lorratz zurixka utziko du atzean. Koro Navarro

Angurriaren **alboek** (zalgurdiaren atetilak alegia) behialako pintura horiaren arrastoak zituzten oraindik. Jose Morales

Sarrarazi kutxaren bi **alboetako** eraztunetan, kutxa eraman ahal izateko. Elizen arteko biblia

Alboetan, beste kaleen sarbide beltzak ageri ziren, oro isil, oro ilunpe. Karlos Zabala

Haitzulo ilun baten **alboetan** kokaturiko harrizko eraikuntza multzo estua zen, eta harresia zuen inguruan. Agustin Otsoa

Lorontziaren **alboetan** Sèvresko portzelanazko lau maisulan daude, lau estatuatxo airos eta dotore, lau puntu kardinalak irudikatzen dituztenak: Iparra, Hegoa, Sortaldea eta Sartaldea.Gizona, aldiz, isilik zegoen sudurraren **alboetan** atzamarka. Xabier Olarra

[Argimutilari] bi **alboetatik** sei beso aterako zaizkio, hiruna beso **albo** bakoitzetik. Elizen arteko biblia

Berriro ere eskumuturrean orduari begiratu, eta amorrazio keinuak egiten jarri nintzen burua **alboetara** mugituz. Ramon Saizarbitoria

Muselina horizko zamau izugarri handi batek -oparia zen- estaltzen zuen mahaia, eta **alboetatik** zintzilik geratzen zen. Koro Navarro

Sudurretik (SUDURKARIEK) edo ahoaren **alboetatik** (ALBOKARIEK) [...] nahikoa irekitasun ematen diote aireari, hersketarekin batera hotsa gerta dadin. Lourdes

Oñederra

Ertzak zituen, eta oinarria eta **alboak** zurezkoak. Elizen arteko biblia

Abere-odola hartu eta aberea jango duzuen etxeko ategainak eta **alboak** odoleztatuko dituzue. Elizen arteko biblia

Eskuaira bat jartzen bada ildaxkaren sakonunean eta jiraka mugitzen bada erpinaren inguruan, ezkerreko eta eskuineko ertzak ukituko ditu **alboekin**, aldi berean erpinarekin kurba ukitzen duen bitartean bere birakako mugimendu horretan. Santiago Iruretagoiena

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Zurezko bi **albo** astun zituen tresnak, bakoitza metro eta hogei luze eta metro bat zabalekoak edo, betegarri lodi eta goxo batez tapizatuak. Xabier Olarra

Nire etxe aurrean, etxea estaltzen, babesten eta itzala ematen dion **albo** erraldoiaren azpian belarretan etzanda eman dut goiz guztia. bi alboetatik sei beso aterako zaizkio, hiruna beso **albo** bakoitzetik. Josu Zabaleta

Haien esanetan, ezker **alboetako** kortex prefrontalak sumatzen ditu estetika kontuak. Berria - Gaiak

4 (albo errepikatuz)

Trena **albo alboan** dago eta oraintxe hasi da martxan. Joseba Sarrionandia

Eta, miraria, afitxak saltzen dituen denda museoaren **albo-alboan** dago. Edorta Jimenez

Rafael Puntonet EAEko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialeko presidenteak **albo-alboan** izan du bere lanean Manu Aranburu. Berria - Ekonomia

Nostromoak pertika bat botako dio, buruaren **albo albotik** pasatuko zaiona, eta zulotik behera urpean galduko da pertika, itsastxakurrak erdi harrituta jarraituko duelarik begira, burloi. bere alboko ohe puska seinalatu zion Mentxuk, **alborik albo** jesar zedin. Joseba Sarrionandia

Alboz albo dauzkagu gelak. Anjel Lertxundi

Charliek, Big Joek eta hirurok, **alboz albo** belauniko jarri, eta otoitz egiten genuen gauero, arren Molly hil ez zedin. Mirentxu Larrañaga

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ateak bost metroko zabalera, eta sarrerako **albo**-hormek bi metro eta erdikoa. Elizen arteko biblia

Kanpoko leiho bati ostikoka atera nuen zarata entzunda agure bat atera zen **albo** ate batetik, eta txunditurik zirudien ni ikusirik. Josu Zabaleta

Evans jauna, saltzailea, sartu zen bat-batean kortinez estalitako **albo** ate batetik, isilka eskatu zuen edaria, beroki barruan gorde, eta ezkutuan irentsi zuen. Koro Navarro

Hura nire aurkikundea izan zen (**albo**-areto berean, ezkerretara), ezein apaiz bavariarren laguntzarik gabekoa. Joxe Austin Arrieta

Antzinako loria nola, halatsu amaitzen zen kalezuloa ere, bat-batean, hiruna solairurekiko bi **albo** eraikinetan. Patxi Zubizarreta

Ateak bost metroko zabalera, eta sarrerako **albo**-hormek bi metro eta erdikoa. Elizen arteko biblia

Albo-sarrerako ateskak kirrinka egin zuen, On Camillok buelta eman eta Pizziren semea azaldu zen. Koldo Biguri

Ezkerrean **albo** irteera bat, sukaldera. Josu Zabaleta

Muga-postuak sistema beraren parte dira, muga-lerroak **albo**-bide ere izaten baitira beti. Iñaki Mendiguren

Txakurtxo bat irten zen **albo**-kale batetik eta, otxan-otxan hasi zen On Camilloren ondoan ibiltzen. Koldo Biguri

Gauean barrena Louren oherantz, bukatzen ari zen jaiegunaren amaiera sinets ezinezkorantz, laster batean utzi zituzten atzean etxeak eta zubiak, kezko hodei batean bildutako geltoki bat, eta **albo** kale aldapatsu batetik igo ziren. Koro Navarro

Bozgorailuetan zabaldua, musikak **albo** kalezuloetako gazte ugari erakarri zuen, eta samaldan hartu zuten Sanadikia kalea. Patxi Zubizarreta

Eta hara non, ehun metro egin eta gero, bidea beste **albo**-bide batekin gurutzatzen zen aldera iritsi eta topoz topo egin zuten beste tropel batekin. Koldo Biguri

Gaixoa bizirik ateratzen bada, handik bizpahiru egunera jartzen da abian **albo**-zirkulazioa; ordurako, hala ere, heriotza eragina du askotan tronbosiak. Irene Aldasoro

Hizkuntza bizi bat lehenik hizketa-modu bat da, hitza bera mihia esateko latinezko hitzetik (*lingua*-tik lengoaia) etortzeak iradokitzen duen bezala; haren literatura bere **albo**-produktua izango litzateke. Iñaki Mendiguren

Albo-eragin horiek gora-behera, harro bizi izan da beti gizaki modernoa, unibertsoaren gailurrean dagoen uste osoan. Joxerra Garzia

Banuen halaber gertaera guztiz ohargarri baten berri, alegia, Usher arrazaren leinuak ez zuela inoiz **albo**-adar iraunkorrik sortu; beste hitzetan, familiaren ondorengoak denak ziren zuzenekoak, eta horrelaxe gertatu izan zen beti, oso gorabehera txiki eta laburrekin. Koro Navarro

Gabezia horrek, hau da, **albo**-adarreko ahaiderik ez izateak, eta horren ondoriozko aitarengandik semearenganako igorpenak, desbiderapenik batere gabe, parekatu bide zituen bata eta bestea. Koro Navarro

Pentsamolde horrek, ordea, **albo**-kalte ezinago larriak eragiten ditu. Joxerra Garzia

Eskertzen diet, hala ere, **albo**-onura hori eragin izana. Joxerra Garzia

Albo-arrazoi batzuk aipatu nahi ditut, hala ere, zuribide bainoago, bazterketarik nabarmenenetarako erabili den irizpidearen argibidetzat: [...]. Juan Garzia

Lurrari dagokionez, azpiproduktu bat bide da haren osaera: izarretan energia eratzearen eta gure galaxiaren baitan izarrak oldeka sortze eta galtzearen **albo**-emaitza, hain zuzen. Juan Garzia

Diote gizonentzako pilula aurretik **albo** ondorioak galarazteko beharrezkoak diren proba guztiak egin gabe ezin dela merkatura atera. Luis Elberdin

Bigarren jarraibide sortan, berriz, **albo**-ohar moduko bat erantsi zuen Templek, esanez Taco Bell hari musu-garbiketa bat egin ziotela: baserri aizun tankerako etxe batean omen zegoen, eta ez omen zuen batere itxura beltzuria. Xabier Olarra

Banekien **albo**-oharretara jo beharko zuela berorrek azkenerako. Juan Garzia

Akaso, **albo**-erdera indartsuagoetan baino sormen-premia eta sormen-aukera handiagoak ditugu. Andoni Egaña

Zergatik ematen dio halako tratua Eugeniren amari, obra guztian agertzen ez den **albo**-pertsonaia horri? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etxeko ate-**alboetan** ezarri zenituen idolatriazko zeure oroigarriak. Elizen arteko biblia

Eraztunetatik sarturik, jarri aldare-**alboetan**, aldarea eramateko. Elizen arteko biblia

7 ***albo-adar***

Banuen halaber gertaera guztiz ohargarri baten berri, alegia, Usher arrazaren leinuak ez zuela inoiz **albo-adar** iraunkorrik sortu. Koro Navarro

Gabezia horrek, egin nuen neure artean, buruan nerabilelarik zeinen antzekoak ziren jabetzaren nolakotasuna eta biztanleena, eta mendeen joanean ez ote zuten eraginik izan batak bestearen gainean; gabezia horrek, hau da, **albo-adarreko** ahaiderik ez izateak. Koro Navarro

Ile-folikulu ia guztiek **albo-adar** bat dute, bilgorra sortzen duen guruin txiki batera ematen duena. Irene Aldasoro

8 ***albo-alboka***

Gero, gaitzaren sorburuak amore eman eta gorputz ustelduaren humore mingotsa bere gordelekura itzultzen denean, **albo-alboka** lehenengotan, tentetu bezala egiten da, apurka-apurka senera-tuz eta arima beraganduz. Xabier Amuriza

Badirudi bidaiariok betiko eszena gozoa ikusiko dugula laster, baina bagoia dardarka hasi da bat-batean, saltoka, **albo-alboka**. Berria - Euskal Herria

'Edwinek kontatu zidan lehengoan, Chiloén geundela, monje budista batek Billy Burroughsi kontatu ziona,' esango dizu **albo alboka.**. Joseba Sarrionandia

9 ***albo banatan/banatako/banatara***

Albo banatan, geletako ateak zerrendan. Anjel Lertxundi

Albo banatan, Robert Oppenheimer eta Irene Joliot-Curie fisikari paristarra. Fernando Morillo

Beti bezala, korridore bat zegoen, eta **albo banatan** hainbat gelatxo ilun, atea irekirik. Jose Morales

Altzari gutxi eta zaharrak; giro goibel eta deprimitua; ohe handia; mesanotxe txikiak **albo banatan**, lanpara izugarri birekin kontraste itzela egiten dutenak. *Hall of whispers*-en (1995), ikuslea gela luze eta ilun batean sartzen da eta bertan hamar bideo lan ikus ditzake **albo banatan**. Sonia Gonzalez

Nire ondoan, neskatila bat eseri zen, ez oso polita, zurbila eta argala, eta txirikorda bat zuen aurpegiaren **albo banatan**. Eskarne Mujika

Gelaren **albo banatan** zeuden fokuetako argi guztia arima-ongarriarengan kontzentratzen zenez, gainerako guztia erdi ilunpetan zegoen. Anjel Lertxundi

Buruaren **albo banatako** ile-orratzak askatu zituen gero. Anjel Lertxundi

Teilatu askok galbaheak baino zulo gehiago zituzten, gailurreko habea eta -saihets hezurren irudiko- **albo banatako** gapirioak besterik ez zen geratzen haietako batzuetan. Jose Morales

Aitzolek hitz eta hitz egin zuen, eta hitz bakoitza luma berri bat zen bere hegaletan, sotana harrotu zitzaion bizkarraren **albo banatara**, plaza osoa hartzeraino zabaldu zituen hegalak, itzalpe hartan gu, zakatzak gorri aingeru sindikalaren atzaparrean lotsak. Koldo Izagirre

Goitik **albo banatara** leiho itxurako zabalune bi zeuzkan, kontu handiz txarrantxaz estalita. Urtzi Urrutikoetxea

10 *albo batera utzi*

Zalantza keinu baten ondoren, **albo batera utzi** eta aukeratutakoen artetik beste bat mahairatu zuen. Joxemari Urteaga

Esaldia ardurarik gabe jaurtia da, garrantzirik ez duela dirudi; baina ez gara eroriko, ez horixe, eta **albo batera utziko** dugu: informazio horren balioa gero ulertuko dugu. Monika Etxebarria

Nik, gero eta pipertuago, zuhurtasunezko neurri guztiak **albo batera utzirik**, erantzun diot: **Albo batera uzten** ditu idatzitako oharren orriak, **albo** batera **uzten** ditu ezkonberri gazteegi eta mutiria eta haren Milord ingeles gatibua, eta Teresa heldu batekin saiatzen da. Anjel Lertxundi

Utz ditzagun **albo batera** egon daitezkeen akatsak, bai tipografikoak eta bai sintaxiari dagozkionak, nahiz eta hauek zeharo aldrebestu ulertze bidea. Iñigo Aranbarri

11 *albo egin* alde egin

Horregatik, Lukreziok bere poema argitaratu zuenean, epikurotarrek eurek ere **albo egin** zioten. Xabier Amuriza

Bestalde, begiek zer distiratsuei ihes eta **albo egiten** diete. Xabier Amuriza

Zeren maitasun sarean jausteari **albo egitea** ez baita jausitakoan sare beretik libratzea eta Venusen korapilo sendoak haustea bezain zaila. Xabier Amuriza

Zeren, bizigura handiegiz edo heriotzaren beldurrez, ahaide gaixoak bisitatzeari **albo egiten** ziotenek bueltan heriotza zakar eta errukarriaren zigorra jasotzen zuten, bakarrik, laguntza gabe, bertan behera hiltzen zirela. Xabier Amuriza

12 *albo-efektu* *(corpusean ez dago; ETCn **60** agerraldi)*

Hori da bere drogarik kutunena, bere momentu baxuenetan ere **albo-efekturik** gabe (ez bada gantz geruza aldaka inguruan) lagundu dion goxoki maitagarria. ETC-literatura, saiakera

Horregatik nahiko ondo saldu zen, **albo-efektu** gisa Azkueren beraren Tourseko hiztegiari erosleak kentzen zizkiola. ETC-literatura, saiakera

Euskal kulturako jendea **albo-efekturik** gabe zenbateraino jo dezakeen neurtuko du. ETC-prentsa

Halaber, adierazi du antsiolitikoek, logura eragiteaz eta kontzentrazio maila gutxitzeaz gain, ez dutela **albo-efekturik** apenas. ETC-prentsa

Albo-efekturik gabeko medikuntzara hurbilduko gara, botiken garraio kontrolatura, eta garapen jasangarria izango dugu ardatz. ETC-prentsa

Kirola da, noski, baina beste kirol batzuk ez bezala, berekin ditu onuragarriak diren balio eta **albo efektu** batzuk ere. ETC-prentsa

Eta, gainera, **albo-efektuez** jabetzen hasi ziren, urrea ez da erraz disolbatzen eta giza gorputzarentzat zaila da xurgatzen. ETC-prentsa

Han, minbiziaren tratamenduan kimioterapiak sorrarazitako **albo-efektuak** murrizteko molekula kimikoak bilatzea helburu zuen talde batean lanean aritu nintzen. ETC-prentsa

Albo-efektu gogaikarriak sor daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrekin lortu da hainbat hiztunen asertibitatea sendotzea, baina **albo-efektua** kaltegarria izan da euskararentzat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gure asmoa da, tratamendu horiek gure ereduan duten eragina aztertzea etorkizunean **albo efektu** gutxien duten tratamenduak garatze aldera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kirurgia errefraktiboaren bidez ere zuzen daiteke, nahiz eta zenbaitetan **albo efektuak** dituen. ETC-entziklopedia

Dosi handitan emandako tratamendua oso bortitza da eta erradioterapia batek sor ditzaken **albo-efektua** eragin ditzakelako. ETC-entziklopedia

13 *albo herri* *(orobat **alboherri**)* *iz* alboko, inguruko herria.

Iraken, bestalde, Sadam Husseinek autonomia agindu zien Iranen kontrako gerran laguntzearen truke, baina diktadoreak ez zuen bere hitza bete, eta erruki barik jazarri zitzaien **albo-herriarekin** bakea sinatu ondoren. Jon Arretxe

Inguruko erresumen menpe utzi gaitu Jaunak eta **albo-herrietan** sakabanatu, beraien isekagai eta madarikazio bihurtuz. Elizen arteko biblia

Albo herrietan hartutako langileek, armeniarrak, turkoak eta georgiarrak ia denak, zazpi urtegi eraiki zituzten, harrizko hormez, ibaiak ixteko eta hesitzeko. Felipe Juaristi

Berlingo kanpo-auzotegietan edo **alboherrietan** zehar astiro egiten du trenak. Edorta Jimenez

Alboherriko taxia hartu zuen ostegun goiz bateko egunsentian. Joxemari Urteaga

14 *albo-kalte*

Pentsamolde horrek, ordea, **albo-kalte** ezinago larriak eragiten ditu. Joxerra Garzia

15 *albo-ohar*

Bigarren jarraibide sortan, berriz, **albo-ohar** moduko bat erantsi zuen Templek, esanez Taco Bell hari musu-garbiketa bat egin ziotela: baserri aizun tankerako etxe batean omen zegoen, eta ez omen zuen batere itxura beltzuria. Xabier Olarra

Banekien **albo-oharretara** jo beharko zuela berorrek azkenerako. Juan Garzia

16 *albo-ondorio*

Septrim botika hartu zuten umeek oso **albo ondorio** gutxi eta "garrantzia gutxikoak» izan zituzten. Berria - Gaiak

Egun dauden sendagaiek **albo ondorio** gutxi dituztela ere gaineratu zuen Galdizek. Berria - Euskal Herria

Bere egoerak, alta, hobera egin duela, baina "**albo ondorioak** » utziko dizkiola ohartarazi zuen: "Egoera kritikoan dago». Berria - Mundua

Beraz, egin daitekeen aktibitate gisa katalogatu dezakegu, betiere zuhurtziaz egiten bada eta eraginak eta **albo-ondorioak** baloratzeko aukerarik ematen ez duena kontuan hartuz. Berria - Harian

Zainketa berezien unitatean zegoen botika baten **albo-ondorio** bakan horietako batzuek eraginiko osasun txartzearen ostean. Joxan Elosegi

Berak borondatea deitzen duen x indar batek daraman laster bat, aldian behin, materia organizatuaren erdian, **albo-ondorio** bat eragiten duena: garuneko fosforeszentzia bat, islapen bat, adimena alegia. Josu Zabaleta

17 *alboan* ondoan.

Alboan ezker paretako frontoia eraiki dute, 544 lagunentzako lekuarekin. Berria - Kirola

Edna **alboan** izan dut beti, nirekin etorri da medikuekiko zita guztietara. Joseba Sarrionandia

Mazedoniako idazle bietako bat **alboan** jesarri zaigu, geuk eskatuta. Edorta Jimenez

Ipurmasailak edo oin hotzak berotuko zizkidan inor ez **alboan**. Patxi Zubizarreta

Aulki bat **alboan** ipinita etzalekura igo zenean, lumatxak behera egin zuen lurra ia ukitzeraino. Jose Morales

Arropak erantzi gabe esnatu naiz eta, ingurura begiratuz, zurezko etxean nagoela ikusi dut, nire poltsa hor **alboan** dago, eta Victoria erreginaren erretratua gorago. Joseba Sarrionandia

Muino gainean baserri itxurako etxandia dago, palmondo altua **alboan** duela. Joseba Sarrionandia

Imanol **alboan** eseri zait eta, bazkalondoan, identitatearen gaira itzuli da · Eta, izan ere, nagusi jauna leiho **alboan** eseririk zegoen eta dena ikusten zuen handik. Joseba Sarrionandia

· Kuvshinnikov nire **alboan** zegoan eserita, eta zera esan zian: "Hara, adiskidea, ez diagu aukera hau alferrik galdu behar! Jose Morales

Txakurtxoa zeure **alboan** jarriko da, ez etxetiarrak baina kidetasunezkoak diren miazkadak eman ondoren. Joseba Sarrionandia

Sandaliak erantziak zituen, oinen **alboan** baztertuak. Patxi Zubizarreta

Furgonetan, gaur, Ruben eta biok atzealdeko eserlekuetan eta elkarren **alboan** egokitu gara. Patxi Zubizarreta

Iruñeko taldeak Renato Vugrinec esloveniarra eta Carlos Gurbindo nahi ditu eskuin **alboan** datorren sasoian. Berria - Kirola

18 *alboka* *adlag* alborantz, saiheska.

Pista zeharkatzen dugu, bultzaka, **alboka**, dantzaririk eroenak saihestuz. Pako Aristi

Ohe ertzetik burua jaso, **alboka** etzan eta kuzkurtu egin zen. Anton Garikano

Alboka etzanda ikusi nuen. Aitor Arana

Khaled barraren beste muturrean dagoen estereo jurasikora zuzendu da geldiro, **alboka** ibiliz eta besoak jaistera ausartu gabe. Patxi Iturritegi

Zaldiek **alboka** ihes egiten baitzien piztien hagin amorratuei edo, hanka-goran, haizea ostikatzen zuten, alfer-alferrik. Xabier Amuriza

Azken jirabira bat airean egin eta **alboka** jausi zen Zubietako hondartzara. Joseba Sarrionandia

Nekez eta **alboka**, ilara bakar batean tunelean aurrera joaten ikusi zituen Harryk. Iñaki Mendiguren

Elkarren eskua jo zuten, **alboka** listu egin zuten, tratua egina zela adierazteko, eta berriro hasi zen santua. Josu Zabaleta

Bizkarrean kipe handia daraman eta gelditu gabe segitu duen andre horrek, gorputza **alboka** jiratu eta begiak goraka erantzun dit: [...]. Joseba Sarrionandia

Eskuak gerrian ipini eta **alboka** ikusi dut neure burua, txotxolaren moduan galdetuz inoren gustukoa izan naitekeen. Joseba Sarrionandia

Enbarkazioa buruka eta **alboka** ere kulunkatzen ariko da, olatuengatik. Joseba Sarrionandia

19 ***alboko*** *izlag* alboan dagoena.

Alboko emakume eriak nekez jakin zezakeen nik telebistan lan egiten nuenik, baina ez nuen ostatuko etxekoandrearen koipe bera sofritzeko arriskurik nahi. Anjel Lertxundi

Mutikoa ikustera joan zen, sukarrik ez zuen ia, **alboko** minik ez zuen, aise hartzen zuen arnasa. Josu Zabaleta

'Eta senarrak badaki?' dio **alboko** lehorgailukoak. Joseba Sarrionandia

Alboko apalategietan zeuden pote ugarien errotuluei erreparaka ari zen Santos, irakurriko balitu moduan. Josu Landa

Alboko gela ilunpetan zegoen, antza. Ibon Uribarri

Alboko gelakoa eztulka ari da gauero. Anjel Lertxundi

Alboko dendatik datozen deiadarrak entzutean, zuek ere deiadar eginen diezue. Joseba Sarrionandia

Alboko tabernako atea irekita zegoen, eta bertatik zetorren musika ozenak ahotsak estaltzen zizkien. Fernando Morillo

Mutiko potolo bat ari da **alboko** terrazan aulkiak ipintzen, baina emakumeak ez du ikusten, ez du entzuten aulki metalikoen kalaka ozena, katedralen ezkilak joka ari baitira. Javi Cillero

Zena zelako gizon hura **alboko** komunean sartu zen. Unai Iturriaga

Burua makur, oin muturretara begira paseatuz ematen duzu eguna, hitz egiteko animorik gabe, kidea hor **alboko** pasilloan datzala gogotik kendu ezinik. Jokin Urain

Parkeko oihuak entzutean, korrika etorri ziren etxeko zerbitzariak **alboko** atetik, zer gertatu ote zen ikustera. Jose Antonio Mujika

Ohituta zegoen zalantzarik gabe **alboko** gela horrela ikuskatzen, eta emakumearen bizkarraldeak ezer berezirik ez zuen arren, Egutxiri bitxia iruditu zitzaion. Ibon Uribarri

Egutxi zutitu egin zen, eta, **alboko** gelako atea ireki zuenean, usain beroa iritsi zitzaion berehala. Ibon Uribarri

" alai bat entzun, eta han zen Stephen **alboko** balkoian. Xabier Olarra

Leihoa parez pare irekita ikusi zuen, eta aurrean, erreka **alboko** makalen kukulei begira, Andoni, aulkian eserita. Joxemari Urteaga

Adibideek **alboko** erdaren morrontza erakusten dute: [...]. Iñaki Arranz

Edozein elkartek, erakundek, alderdik, erlijiok... etsai gogorragotzat hartzen du hurbileko heterodoxoa, urrutiago sentitzen duen jentila baino, eta urruneko jentil hori hurbilarazteko eta bereganatzeko saio ugari eta proselitismo gorria egiten saiatuko den neurri berean ahaleginduko da **alboko** heterodoxoa suntsitzen eta desegiten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez omen gara oraino ezagutzen hasi gehigarrien (gehigarri soilen eta konbinazioen) "**alboko** eraginen" mundu kitzikagarri eta, seguruenik, tragiko hori. Edorta Agirre

Anjel Lertxundik ere, logika formalarenaren antzeko esaldi distiratsu bat baliatzen du Letrak kalekantoitik liburuan **"alboko** hizkuntzarekiko morrontza onartu, bideratu eta txalotzeko" joeraren arriskuez ohartarazteko. Joxerra Garzia

· (-en deklinabide atzizkiaren eskuinean)

Mendebaldeko izar distiratsu bat aukeratu nuen; eta, hurrengo, haren **alboko** beste bat. Mirentxu Larrañaga

"Ez, ez dut nahi", erantzun du azkenik nobiak, eta pauso labur baina irmoz hasi da aldaretik urruntzen, elizaren **alboko** nabeetako batean aurrera, eztei-jantziaren isats luzeak arrastaka darraiola. Iban Zaldua

Aulki gurpilduna ohe ertzeraino hurbildu; ohearen **alboko** esku-banda askatu; besteari heldu. Jon Muñoz

Poto borobil eta loratuaren **alboko** kaxatik puru berri bat atera zuen. Joxemari Urteaga

Zaunka bat entzun zuen sukaldearen **alboko** gelan. Joxemari Urteaga

Dueñasko jauregiaren **alboko** lorategiaren terrazara heldu ziren, eta gorputzak barandaren burdinetan utzita talai hartatik ikusten zen Abraren ikuspegi luzea dastatzeko isilunean murgildu zen bikotea. Josu Landa

Alboko sakea atera eta bost bat minutura, ordea, guztiz aldatu ziren gauzak, orpoz sartu bainuen gola, airean inoizko saltoa eginik, sekulakoa. Joan Mari Irigoien

· (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Gehiena jota ere ohe **alboko** mahaitxoko liburu izan nahi du. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mahai **alboko** eserlekua seinalatu zion gero Oppenheimerri. telebistan ezorduetan ematen zituzten zientzia fikziozko saio zaratatsuak irensten hasi zen eta bideozinta mordoa alokatu zuen etxe **alboko** klubean. Fernando Morillo

Goizeko 9: 30etarako Auzitegi **alboko** kafetegi kanpoaldean zain zeuden arren, gutxi batzuk besterik ez zuten izan sartzeko aukerarik. Berria - Harian

Nire lagunak hasperen egin zuen errepide **alboko** herrixka bat seinalatuz. Bernardo Atxaga

Obaba **alboko** herri koxkor bateko ikaslea zen Aguiriano, kolegioko atletismo taldean zebilena. Bernardo Atxaga

20 ***alboko etzanera*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Batzuetan, isuria oso txikia da eta ezinbestekoa da **alboko etzanerako** erradiografia egitea izpi horizontalarekin, isuria balioesteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egia esan, bi proba dira, lehen probarako ahoz gorako etzaneran eta bigarren probarako **alboko etzaneran**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alboko etzaneran: posizio fetala. ETC-zientzia, zuzenbidea

21 ***alboko kalte***

Lanik eza "**alboko kalte** ugari eragiten ari delako», sindikatuek salatu zutenez. Berria - Ekonomia

22 ***alboko marra***

Sevillak alboko sakeak oso luze ateratzen dituenez, **alboko marraren** ondo-ondoan jartzen zen, sakea ateratzen zuenean oztopoa jartzeko. Berria - Kirola

D'Arcyk egin zuen sarraldia eta O'Driscollek pase luzea Dempseyri.23. minutuan Reagan ingelesa ere heldu zen entsegu lerrora, baina entsegua egin aitzin, **alboko marra** ukitu zuen. Berria - Kirola

23 ***alboko min***

Mutikoa ikustera joan zen, sukarrik ez zuen ia, **alboko minik** ez zuen, aise hartzen zuen arnasa; arrosa-koloreko tindu arin batek koloreztatzen zuen masail bat; bestea, berriz, zurbil zegoen. Josu Zabaleta

24 ***alboko sake***

Alboko sakeetan arriskua sortzeko aukera izaten zen, eta gol asko jokaldi horren bitartez lortzen ziren. Berria - Kirola

Zer egiten zuten hiru txuri-urdinek andaluziarren lehen gola ekarri zuen **alboko sakean** baloiari bizkarra emanda? Berria - Kirola

Baina, orduan, **alboko sake** bat ateratzea egokitu zitzaidan. Joan Mari Irigoien

25 ***alboko sakela***

-Baita tresnak ere -esan zuen Roberts jaunak, kolpetxoak joaz **alboko sakelean**. Koro Navarro

26 ***albora*** *adlag* ondora; alde batera.

Fudgek marradun kapa beltza erantzi eta **albora** bota zuen. Iñaki Mendiguren

Anai Pazifiko bere onera etorri zenean, Frantzisko dohatsua kanpora irten eta **albora** etorri zitzaion. Askoren artean

Harry izutu egin zen, **albora** begiratu eta Hermione ikusi zuen. Iñaki Mendiguren

Harryk, **albora** begiratu zuen une berean, adar bat ikusi zuen, pitoi sugea bezain sendoa, jo eta autoa txikitzen. Iñaki Mendiguren

Kerrua etorri zaio, **albora** behatu dut zapi zikina atera duenean. Koldo Izagirre

Albora begiratu eta ez da beste inor izango inguruan, bakar bakarrik egongo zara espaloian kristalaren kontra. Joseba Sarrionandia

· Labearen **albora** heldu, ikaztegira makurtu eta ikatz artean haztamuka hartu nuen pistola. Joseba Sarrionandia

Goio itzuli zen berriro nire **albora**, pupitre bikoitzean Lodiak uzten zidan baztertxoan bi egunez agoantatu ondoren. Joseba Sarrionandia

Larri larritu nintzen, eta jaiotzatik harakoak oka egin nituen, kanpora!, eta hala ere ez nuen nire onera etortzeko modurik izan, eta sentitu nuen banindoala beste munduko arimen **albora**. Edorta Jimenez

Bere **albora** deitu zidan, aginkor. Edorta Jimenez

27 *albora egin*

Nire aginduari men egin beharrean, **albora egin** zuen, belauniko jartzeko keinuan. Edorta Jimenez

Mundua gainera jausten zaizunean, **albora egin** pixka bat. Berria - Kultura

Herabe eta adeitsu **albora egin** zuen, niri irteten uzteko atea zabaldu, eta orduan -segundo hartan, aditzen? segundo hartan- ikusi nuen, begiak malkotan ikusi ere, gizon zahartuaren begiradan bat-batean argi bat dirdirka. Eduardo Matauko

Tupustean **albora egin** eta ohean agondu zen: Stan Emery eriden zuen ohearen ondoan, eskuak larru gorrizko jakaren poltsikoetan, aurpegi grisa zuelarik, argi-hautsez beterik. Lopez de Arana

Gau minaren sargorian ene **albora egin** duzu maindirepean, laztana. Javi Cillero

Léa, **albora egin** salto, eta ozta-ozta ez zen, bada, arratsalde ezin beroago hartan hirian barrena zebilen auto bakarraren azpira erori. Jon Muñoz

Gelako atea ireki eta **albora egin** zuen, niri pasatzen uzteko; etxeko azken solairuan geunden, lurretik tetxurainoko leiho handiek nire oinetan ipintzen zuten hiri osoa. Juan Martin Elexpuru

28 *albora utzi* alde batera utzi.

Gure tradizioan, eta frantziskotar bizitzaren irakurketa moralizatzaileari jarraiki, "lege-testuek" izan dute lehentasuna, eta **albora** utzi dira S. Frantziskoren pentsamendua seguru asko hobeto adierazten duten beste idazkiak. Askoren artean

Kontu horiek guztiak **albora uzten** -edo ezkutatzen- badira, testu hutsera mugatzen da bat-bateko bertsoa, eta testu hutsa, ikusiko dugunez, bertsoaren alderdietako bat baino ez da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Reader's Digest aldizkariak **albora utzi** zuen fikzioa ez zena soilik argitaratzeko zuen araua. Ramon Etxezarreta

Ez nituen **albora utzi** hizkuntza unibertsalak. Juan Garzia

Berriro onetik urruntzean gaiztotzen bada, **albora utzi** duen onak beragan ez badirau, inoiz onbideratu nahi izango balu ere ez luke nora bihurturik izango. Imanol Unzurrunzaga

Erretorika berriek, pragmatikak, antropologiak, ahozkotasunaren teoriak eta, batez ere, bertsolariek berek **albora utzi** ezineko arrasto baliagarri mordo bat eskaini dizkigute azken urteotan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Horregatik, arlo fisikoari eman diogu lehentasuna, teknikoa **albora utzita**. Berria - Kirola

Bertso Egunaren garrantzia nabarmendu du, Txapelketa **albora utzita**, "urteko saiorik politena" izaten baita Bertso Egunekoa, "gazte jende asko joaten da eta gaztea dagoen tokian alaitasuna izaten da". Berria - Kultura

Esadazu egia, zuk igartzen duzu desberdintasun seriorik telebista honen edo gainerako telebisten artean, **albora utziz**, hori bai, baliabideak urriagoak dituela? Pello Salaburu

Zurrumurru kezkagarri batzuk entzunak nituen jadanik Donostian: aspaldi Cabrera jeneral erradikala ingeles protestante batekin ezkondua zela, kristau fedea bera **albora utzia** zuela, eta karlista izateari ere bai. Txillardegi

Ia denek Jainkoaz ahazturik bizi ziren eta haren aginduak axolagabe **albora utziak** zituzten, eta ia pentsaezina zen haiek beren gaitz zahar errotuetatik ateratzea onar zezaketenik. Askoren artean

29 *ate-albo*

Etxeko **ate-alboetan** ezarri zenituen idolatriazko zeure oroigarriak. Ni alde batera utzirik, biluzik jarri, zeure ohe zabalean etzan eta maitaleez aprobetxatzen zinen. Atsegin zenuen haiekin oheratzea. Elizen arteko biblia

Ate alboan itxaron zuen. Xabier Montoia

Besterik jakin ezinik, gutxienez balizko lapurrak uxatzea pentsatu zuten, eta horretarako Kasimen gorpuarekin lau zati egitea erabaki zuten, eta lau zati haiek **ate alboetan** ezartzea, bi alde batean eta bi bestean. Patxi Zubizarreta

Ate-alboari heldua, hara han loroa! Jon Muñoz

30 *masail albo* *(orobat **masailalbo**)*

Masailen zuloetan, **masailalboen** azpian, arrosa koloreko bi mantxa zeuden, isolatuak, haragi pobre horren gainean aspertzen ari zirela ziruditenak. Monika Etxebarria

Macijauskas, **masail-alboan** zortzi puntu dituela, eta Betts, bizkarreko minak gainditzeko bidean, Manresan daude. Berria - Kirola

Bikotekideak behin **masailalbo**-hezurra hautsi ziola azpimarratu zuen emakumeak Foruzaingoaren egoitzan, eta jasotako azken jipoian sabelaldean hainbat muturreko eman zizkiola. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

albo alboan (6); **albo alboka** (4); **albo albotik** (7); **albo ate** (3); **albo ate batetik** (3); **albo bakoitzean** (4); **albo banatako** (3); **albo banatan** (28); **albo banatara** (5); **albo bat** (3); **albo batean** (89); **albo batean eta** (5); **albo batean utzi** (13); **albo batean uzteko** (3); **albo batean zeuden** (3); **albo bateko** (8); **albo baten** (6); **albo batera** (269); **albo batera baztertu** (4); **albo batera bota** (5); **albo batera edo** (3); **albo batera egin** (4); **albo batera eta** (6); **albo batera gelditu** (3); **albo batera mugitu** (5); **albo batera okerturik** (8); **albo batera utz** (3); **albo batera utzi** (64); **albo batera utziko** (4); **albo batera utzirik** (8); **albo batera utzita** (36); **albo batera utziz** (4); **albo batera uztea** (10); **albo batera uzteko** (13); **albo batera uzten** (17); **albo baterantz** (3); **albo batetik** (16); **albo bietan** (9); **albo bietara** (7); **albo egin** (3); **albo herrietan** (3); **albo kale** (3); **albo ondorio** (5); **albo ondorioak** (7); **albo produktua** (3); **alboak eta** (3); **alboz albo** (4); **alderdi interesak albo** (3); **atearen albo** (3); **ategainak eta alboak** (3); **baina albo** (3); **bat albo** (4); **bi albo** (3); **burua albo** (7); **burua albo batera** (7); **buruaren albo** (3); **da albo** (5); **du albo** (3); **elizaren albo** (5); **elizaren albo batean** (3); **ere albo** (4); **errepidearen albo** (3); **eszenako albo** (5); **eta albo** (28); **eta albo batean** (3); **eta albo batera** (10); **eta alboak** (6); **guztiak albo** (4); **guztiak albo batera** (4); **haren albo** (5); **hori albo** (5); **hori albo batera** (5); **interesak albo** (4); **interesak albo batera** (3); **politikoak albo** (4); **zen albo** (5); **zuen albo** (5)

albo alboan (6); **alboan agertu** (3); **alboan belaunikatu** (3); **alboan bere** (6); **alboan beste** (8); **alboan beti** (3); **alboan bizi** (5); **alboan dago** (11); **alboan dagoen** (6); **alboan dituztela** (3); **alboan du** (3); **alboan dudan** (6); **alboan duela** (4); **alboan duen** (3); **alboan egin** (4); **alboan egokitu** (7); **alboan egon** (12); **alboan egon zen** (3); **alboan egotea** (3); **alboan egoteko** (3); **alboan eseri** (54); **alboan eseri eta** (7); **alboan eseri zen** (21); **alboan eseri ziren** (6); **alboan eseri zitzaion** (6); **alboan eserita** (24); **alboan esertzea** (4); **alboan esertzen** (6); **alboan esertzera** (4); **alboan eta** (20); **alboan etzan** (8); **alboan etzanda** (5); **alboan ez** (9); **alboan gelditu** (4); **alboan gelditu zen** (3); **alboan geratu** (3); **alboan igaro** (3); **alboan igarotzean** (3); **alboan izan** (20); **alboan izan zituen** (4); **alboan izango** (7); **alboan izatea** (5); **alboan izaten** (4); **alboan jarraitu** (4); **alboan jarri** (13); **alboan jesarri** (14); **alboan jesarri zait** (4); **alboan jesarrita** (4); **alboan joan** (6); **alboan lekua** (3); **alboan lo** (7); **alboan nahi** (5); **alboan neukan** (4); **alboan norbait** (3); **alboan nuen** (9); **alboan paratu** (3); **alboan suertatu** (3); **alboan utzi** (10); **alboan utzi nuen** (3); **alboan utzita** (5); **alboan zegoen** (26); **alboan zeraman** (5); **alboan zeuden** (5); **alboan zeukan** (9); **alboan zituela** (9); **alboan zituen** (11); **alboan zuela** (17); **alboan zuen** (7); **alboan zutela** (4); **alboan zutik** (5); **aldare alboan** (3); **amaren alboan** (6); **argazkiaren alboan** (3); **ate alboan** (4); **atearen alboan** (4); **bakoitzaren alboan** (4); **bat alboan** (9); **bata bestearen alboan** (16); **baten alboan** (33); **bere alboan** (48); **bere alboan eseri** (3); **beste alboan** (4); **bestearen alboan** (17); **beti alboan** (10); **bihotzaren alboan** (3); **charlie alboan** (4); **dantzalekuaren alboan** (3); **ditu alboan** (9); **ditut alboan** (4); **du alboan** (9); **dut alboan** (7); **elkarren alboan** (28); **elkarren alboan eseri** (3); **elkarren alboan zeuden** (3); **emaztearen alboan** (3); **ene alboan** (3); **ere alboan** (3); **eskuin alboan** (3); **eta alboan** (40); **eta alboan eseri** (3); **eta alboan etzan** (3); **eta bere alboan** (7); **eta haren alboan** (13); **eta nire alboan** (7); **etxe alboan** (7); **etxearen alboan** (4); **euren alboan** (4); **gidariaren alboan** (3); **goioren alboan** (5); **gorpuaren alboan** (4); **gure alboan** (11); **haien alboan** (13); **handia alboan** (3); **handien alboan** (3); **haren alboan** (64); **haren alboan eseri** (9); **hegazkinean nire alboan** (3); **honen alboan** (3); **horren alboan** (8); **izan zituzten alboan** (3); **izan zuen alboan** (3); **izango ditu alboan** (6); **izenaren alboan** (5); **labearen alboan** (3); **leiho alboan** (5); **leihoaren alboan** (4); **nagusiaren alboan** (4); **neskaren alboan** (3); **nintzen haren alboan** (3); **nire alboan** (59); **nire alboan eseri** (5); **nire alboan zegoen** (3); **norbait alboan** (3); **ohe alboan** (4); **ohearen alboan** (4); **onenen alboan** (4); **ren alboan** (6); **rubenen alboan** (5); **rubenen alboan egokitu** (3); **txakurra alboan** (3); **zen alboan** (6); **zeukan alboan** (3); **zeure alboan** (5); **zituen alboan** (7); **zituzten alboan** (4); **zuen alboan** (8); **zuen bere alboan** (3); **zure alboan** (8)

albo albotik (7); **alboetako bi** (6); **alboetan eta** (5); **alboetara begiratu** (10); **alboko ate** (4); **alboko atea** (3); **alboko atean** (5); **alboko atetik** (7); **alboko beste** (4); **alboko eserlekuan** (3); **alboko espainiarra** (5); **alboko gela** (19); **alboko gela batera** (4); **alboko gela batetik** (3); **alboko gelako** (6); **alboko gelako atea** (4); **alboko gelan** (20); **alboko gelara** (11); **alboko gelara joan** (4); **alboko gelatik** (5); **alboko hungariarra** (3); **alboko kalean** (3); **alboko kubatarra** (3); **alboko lotailua** (3); **alboko lotailuan** (3);

alboko lotailuan haustura (3); **alboko mahaian** (7); **alboko portugaldarra** (3); **alboko sake** (3); **alboko sakeak** (3); **alboko serbiarra** (5); **alboko taberna** (4); **alboko terraza** (3); **alboko ukrainarra** (4); **albokoa da** (3); **albokoa ere** (4); **albokoa izan** (5); **albokoak ere** (3); **albokoak eta** (3); **albokoen jaurtiketak** (3); **albora begira** (4); **albora begiratu** (9); **albora begiratu eta** (5); **albora begiratzen** (4); **albora egin** (8); **albora egin zuen** (3); **albora etorri** (6); **albora itzuli** (4); **albora joan** (4); **albora utzi** (23); **albora utzi eta** (4); **albora utzita** (9); **albora uzten** (3); **albotik alde** (4); **albotik betiko** (3); **albotik ere** (3); **albotik igaro** (13); **albotik igaro zen** (4); **albotik igarotzean** (16); **albotik pasatu** (7); **albotik pasatzean** (8); **albotik pasatzen** (8); **alboz albo** (4); **ate alboetan** (4); **bat albotik** (13); **bat albotik igarotzean** (10); **baten albora** (3); **baten albotik** (6); **bere alboko** (5); **bere albora** (4); **bere albotik** (6); **besoak alboetara** (3); **bi alboetako** (3); **bi alboetan** (8); **bi alboetara** (4); **bi alboetatik** (4); **da alboko** (3); **edo alboko** (6); **elizaren alboko** (3); **eskuin alboko** (19); **eskuin albokoa** (13); **eskuin albokoak** (5); **eskuin albokoaren** (4); **eta alboetako** (7); **eta alboetan** (7); **eta alboetara** (7); **eta alboko** (44); **eta alboko gela** (5); **eta alboko gelara** (4); **eta albora** (11); **eta albora etorri** (3); **eta albora utzi** (3); **eta albotik** (3); **etxe alboko** (3); **etxeko ate alboetan** (3); **euren albotik** (4); **ezker alboko** (29); **ezker alboko espainiarra** (3); **ezker alboko hungariarra** (3); **ezker albokoa** (20); **ezker albokoak** (7); **frey ezker alboko** (3); **gure albotik** (4); **haren alboko** (5); **haren albora** (6); **haren albotik** (6); **hura alboko** (4); **konboi bat albotik** (3); **nire alboko** (8); **nire albora** (5); **nire albotik** (8); **ohearen alboko** (4); **patruila bat albotik** (5); **presidentearen albokoa** (3); **stankovic eskuin alboko** (3); **taldeko eskuin alboko** (3); **zituen alboetan** (3); **zuen alboko** (6)

---

alboherri ik **albo 10**.

---

alboirudi *iz* alboko irudia.

Sukarrak higatu zuen eta Mila eta bat gauetako **alboirudiak** lokamutsen apaingarritzat baliatu ziren. Juan Garzia

Alboirudi koxkor bat zekarren, hiztegietan ohi denez: aingura bat, lumaz marraztua, haur baten esku baldarretik aterea irudi. Juan Garzia

Sukarrak higatu zuen eta Mila eta bat gauetako **alboirudiak** lokamutsen apaingarritzat baliatu ziren. Juan Garzia

---

alboka[1] *iz* euskaldunen musika tresna, kanaberazko bi hodiz eta haien buruetan itsasten diren bi behi adar zatiz osatua.

Hala oroitzen dut bertze eszena hura, udazken batean -urte hartako udazkenean izanen zen, segur- anaia eta biok basoan jostetan ibili ginenekoa, orbelaren gainean besarkaturik, arrodaka, munduko umerik zoriontsuenak bagina bezala, urrunetik **alboka** baten notak eta soinuak zetozkigun bitartean, artzainen batek-edo joak. Joan Mari Irigoien

Soinu txikiak bazterrean utzi zituen **alboka** eta dultzaina, eta koplaritzak berak ere behera egin zuen, beste neurri bateko eta beste espiritu bateko formei lekua utziz: bertsoari. Berria - Kultura

Luis Aranburuk jo ditu akordeoia eta teklatua; Xabier Agirrek, txirula, gaita, **alboka** eta baxua; eta Xabier Azkaratek, perkusioa. Berria - Kultura

Folk taldeen eskutik hasi zen **alboka** berpizten. Berria - Kultura

Alboka jotzaileen hitzetan oinarrituta, **albokari** buruzko liburua argitaratu du Manu Gojenolak. Berria - Kultura

"Albokari, Euskal Herriko klarinete bikoitzari bete-betean eskainiriko lana" sortu du Ibon Koteronek: [...]. Berria - Kultura

Txalaparta eta **albokaren** soinuek ongietorria eman zien 18/98 lan taldeak Andra Mari Zurian bildutakoei. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
albokaren alde (3); **eta albokaren** (3)

---

alboka[2] ik **albo 11**.

---

albokada *iz* alboarekin emandako kolpea.

Haizeak, berriz, ia iraultzerainoko **albokadak** ematen zizkion kalesari. Anjel Lertxundi

---

albokagile *iz* albokak egiten dituen pertsona.

Ezkiaga pasealekuan **albokagileen** azoka-erakusketa jarriko dute. Berria - Kultura

Albokari onskoa ezezik, Arratia aldeko azken **albokagilea** baigenuen. Patziku Perurena

---

albokaldi *iz* alboka jaialdia.

Arabako, Bizkaiko, Nafarroako eta Gipuzkoako musikariek **Albokaldia** eskainiko dute Ezkiaga pasealekuan 12: 30ean. Berria - Kultura

---

albokari[1] *izond* fonetikan, kontsonaneez mintzazuz, goialdetik ahosabaia eta behealdetik mihia elkartuz gauzatzen den fonema kontsonantikoa.

Hemen, nahita eginiko sinplifikazioa dela medio, foneman bere irekiera maila hartuko dugu kontuan, artikulazio lekua, eta artikulazioaren izaera berezia (ahostun ala ahoskabe den, dardarkari edo **albokaria** eta abar) kontuan hartu gabe. Isabel Arrigain

Txilibrin, panderojole eta **albokari** famadua, Gure artean, esaterako, gero eta gutxiago dira ¥ SABAIKARI **ALBOKARIA** ahoskatzen dutenak. Xabier Amuriza

Guretzat ezagunenak kontsonante OZEN **albokariak** dira (l, ¥), baina badira Afrikako hizkuntza batzuetan KLIK **albokariak** edo galesez IGURZKARI **albokariak** ere. Lourdes Oñederra

Egia da hitz sinpleetan ez dela erraz txistukari-SUDURKARI (edo, oro har, txistukari-**ALBOKARI**) bilkura aurkitzea (txistukari-hasperen bilkurarik ez dago batere). Lourdes Oñederra

---

albokari[2] *iz* alboka-jotzailea.

Igandean, goizetik hasiko dira **albokariak** kalejiran. Berria - Kultura

Tresna tradizionalen musikari profesionalak sortzea izango da ikasketen helburua; hala nola, txalapartariak, **albokariak** eta trikitilariak. Berria - Kultura

Leon Bilbao, **albokari** bizkaitarra, hil egin zela aditu nuen orain zazpi urte, eta halabeharrak gauza asko ekarri gogora. Patziku Perurena

Albokari onskoa ezezik, Arratia aldeko azken albokagilea baigenuen. Patziku Perurena

Kanta horren doinua omen da, usarioz, **albokari** hasi berriak aurrenekoz ikasi behar izaten duena. Patziku Perurena

Txilibrin, panderojole eta **albokari** famadua. Xabier Amuriza

Albokarien topagune izango da Hernani datorren asteburuan. Berria - Kultura

Ibon Koteronek gidatutako **albokari** taldea. Berria - Kultura

Igandean, txistulari, trikitilari, joaldun, **albokari**... Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
albokari bilbotarrak (3); eta albokari (3); ibon koteron albokaria (3); ibon koteron albokariak (3); koteron albokariak (3)

---

albokaritasun *iz* fonetikan, hotsez mintzatuz, albokari izateko nolakotasuna.

Egia da, TASUN konbinaketa mota bat galduta (PALATALTASUNA **albokaritasunarekin** lotzen duena), kontraste aukera bat galtzen duela hizkuntzaren ahoskerak (SABAIKARI albokarien eta ez-albokarien artekoa). Lourdes Oñederra

---

albokazale *iz* albokaren zalea dena.

Aurten ere **albokazale** guztien bilgunea izatea espero dute; izan ere, Euskal Herriko albokari profesional eta ikasleak elkar ezagutzeko aukera ematen du; baita albokaren gaineko berrikuntzak jakinarazteko eta musika tresna hau herriarengana gehiago gerturatzeko ere. Berria - Kultura

---

albokera *(orobat **albokeraz**) adlag* zeharka.

Berauen azpian sudur txiki barregarria, ia hezur gabea, ikusten nuen, eta preso txapela alaiki zeraman **albokera**. Urtzi Urrutikoetxea

Txori baten formako tatuaia zeukan ezkerreko besagainean, eta hari **albokeraz** erreparaka gelditu zen Joselu. Josu Landa

---

albokide *izond* albo bera duena.

Egia ere da hori eta dagokion esperientzia mistikoa ia beti korronte **albokide** bat izan direla, eta sarri askotan ezkutukoa ere bai, eta ia beti errezeloz begiratua eta zenbaitetan Eliza ofizial eta hierarkikoak jazartua sarritan izaera eta adierazpen nabarmenki subertsiboak izateagatik. Joan Mari Lekuona

Beste lurralde batzuetan, are agerikoagoak, bi sistemok lurralde batean bizi baitira, **albokide** eta auzoko. Andres Urrutia

---

alboko ik **albo 19**.

---

albolagun *iz* alboko laguna.

Albolaguna bakarrik ez, morroia ere bai! Joseba Sarrionandia

Giza harremanetan beti, baina bereziki militarren artean, bada behin eta berriro nabaritzen den egitura eta bilakaera bat: alde batetik, jauntxo karismatiko bat, leba handiko gizona Kalaportun Juan Maria Garaikoa; bestetik, gizon hori miresten duten **albolagunak** eta gizajoak. Berria - Kultura

Ba ez pentsa Don Juan Manuel Garaikoaren **albolagunarekin** bizitzea ere gauza goxoa denik. Joseba Sarrionandia

---

albondiga *(orobat **almondiga** g.er.; ETCn **136** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **haragi bola** agertzen da; ETCn **80** agerraldi)* **1** *iz* haragi xehetuarekin egiten den bola modukoa.

Bazen non zer hauta: menestra edo arroza lehenbizikoz, **albondigak** edo xerra errusiarrak bigarrenez. Aingeru Epaltza

Lehen, etxeko sukaldean garatzen ziren lan gehientsuenak egun fabrikan egiten dira: kroketak, zopak, potaje edo eltzekariak, **albondigak**, kontserbak, postreak, tortillak, saldak, pastak... etxekoandreak paratzen zituen bere laborategian. Edorta Agirre

Bibote exkaxa zuen, hankak hezur eta azal, sabela zepelin bat baino handiagoa, **albondiga** bat ematen zuen bi txotxen gainean. Karlos Zabala

'**Albondigaren** istorioa' haur ipuina kaleratu du Julen Azpeitiak. Berria - Kultura

Ez, ez, erantzun nion, Antjeren etxean haragizko **almondigak** jaten nituen beti, **almondigak** haranen zukuarekin. Fernando Rey

Bazkaritarako asteko menua honela izaten da: babarrun pintoak, ilar zopa, patatak irinezko **albondigekin**, patata cholent; geroztik, Jainkoaren opari bezala, arbi-hostoak edo azenario ustelak, eta gero berriro babarrunak. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Irin **albondigei** buruz, Gobernuaren irinez, urez eta altxagarriz egiten ditugula esatea falta zen. Josu Zabaleta

Oilar gandorrez eta giltzurrunez betetako opil bat atera zuten lehendabizi lukainkatarako haragi **albondigekin**, ondoren bi barbarin lodi gurinetan, gero indioilar zuri bat ardotan gozatutako gaztainaz betea, gero arkume izter gazitu bat, gozokia bezain guria Josu Zabaleta

3 irud/hed

Sekula ez nuen serio pentsatu hautsa orraziaz prestatzen zuen **albondiga** harekin tratu sexualen bat edo beste izan nezakeela. Karlos Zabala

---

albondigatxo *iz adkor* albondiga.

Ahogozoa egiten zitzaigun Miepek zer jan zuten kontatzen zigun bitartean: juliana zopa haragi **albondigatxoekin**, gazta, haragi xehatuzko kanapeak, bizkotxo bustiak, ardoa eta zigarriloak, nahi adina. Josu Zabaleta

---

albora ik **albo 13**.

---

alborada *iz* egunsentian eta toki agerian egiten zen musika saioa. ik **serenata**.

Goizean, **alborada**, esker onezko meza, aurresku eta mutxikoak, ondotik bazkaria. Herria

Janlekuak zeharkatzen ditu danbor jotzaile batek **alborada** joz. Berria - Kultura

---

alboraezin *izond* ezin alboratuzkoa.

Indar honen ondorio da giza ekintzen multzo nahasia: ekintza hauek elkarrekin talka egiten badute, eta arazoekin, zigorrekin, alegia, aurkitzen badira (nik oztopo politikoak deitzen diet), ondorio txarra eragotziko da, kausa eragilea desegin gabe, hau berezkoa eta **alboraezina** baitu gizonak. Juan Martin Elexpuru

Bere garaian zientzian, geografian, etnologian, medikuntzan, teologian edota filosofian biltzen ziren ezaguerak jasotzen jakin izan zuen eta, horrenbestez, orduko pentsaeraren **alboraezinezko** erreferentzia bihurtu da. Askoren artean

alboraka *adlag* alboka. ik **albo 12**.

Badira mugimenduari dagozkion beste informazio mota batzuk ere: mugimenduzko paralaxia, esate baterako (**alboraka** mugitzean erretinan eratzen diren irudien mugimendu erlatiboek sortzen duten informazioa). Josu Zabaleta

alboraketa *iz* alboratzea.

Hau ez da, halaber, abstrakzioen genesi bat, ahalegintzen dena hauek osatzea baimendu duten eragiketen saila berraurkitzen: hots, erakunde globalak, kasu zehatzen aurkikundeak, irudimenezko gaien **alboraketa** , oztopo teorikoak edo teknikoak topatzea, eredu tradizionaletatik maileguak hartzea behin eta berriz, egitura formal egokiaren definizioa, etab. Xabier Arregi

alborakuntza *iz* gramatikan, bi perpaus juntagailurik gabe lotzea.

Alborakuntza eta juntagailuen bidez perpaus gero eta konplexuagoak sor ditzakegu, inolako muga gramatikalik gabe. Iñaki Arranz

Hizkuntza semitikoek, adibidez, **alborakuntza** soilez adierazten dute izen determinatzailearen eta izen determinatuaren arteko erlazioa [...]; **alborakuntza** hori, berez, joskera berezia da, -"egoera eratua" esaten zaio-, izen determinatua izen determinatzailearen aurrean kokatzen baita. Isabel Arrigain

Izagirrek menderagailuak kendu eta **alborakuntzaren** eta koordinazioaren alde egiten du. Markos Zapiain

alborapen *(corpusean ez dago; ETCn **208** agerraldi)* **1** *iz* isuria, joera.

Izan ere, minbizirik izan gabeko jendearekin egin behar zen ikerketa, emaitzetan aldez aurreko joera edo **alborapenik** egon ez zedin. ETC-prentsa

Horrek kritika ugari ekarri zizkien egileei, nolabaiteko **alborapen** geografiko bat ere izan zitekeelako. ETC-prentsa

Ala guztia al da txapelketa eta hortik eratorria? **Alborapen** periferikoa gehituta, noski. ETC-prentsa

Iradoki dugu trikuharrietan egindako ehorzketetan nahita egindako **alborapen** bat izan zela, hildakoen adina eta agian sexuaren arabera egina. ETC-prentsa

Autotxostenak erabili izana da ikerketaren muga, desiragarritasun sozialaren **alborapena** baitakarte berekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikerketa transkulturaletan edo atzerriko etorkinekin egiten direnetan prozedurarekin zerikusia duten **alborapenak** ager daitezke, hori ekiditeko zenbait baliabide martxan jarri ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oraingoan, bi txanpon erabiliko dira: txanponetako bat ongi orekatu da, baina bestea ez; honenbestez, **alborapena** du ardoen alde. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aukera arbitrarioa bada (ez probabilistikoa) erregistro arkeologikoan **alborapen** bat gerta daiteke, aztarna batzuk baztertuko direlako eta beste batzuek ordezkaritza handiegia izango dutelako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, histograma egiteko balioen tartekatzearen ondorioz, **alborapena** duela irudika dezakegu, eta horrek ondorio okerrak ateratzera eramango gaitu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alborapena itxura osatzen duten bi ezaugarri estatistikoetako bat da, kurtosiarekin batera. ETC-entziklopedia

Batezbesteko errore koadratikoak zenbateslearen **alborapena** eta zehaztasun (estatistika) zehaztasuna jasotzen ditu. ETC-entziklopedia

2 ***alborapen neurri*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Estatistikan eta probabilitate teorian, **alborapen neurriek** datu-multzo datu multzo baten edo probabilitate banaketa baten itxuraren ezaugarri bat adierazi eta neurtzen dute. ETC-entziklopedia

alboratu, albora(tu), alboratzen **1** da/du *ad* alboan jarri, hurbildu.

Baina orduan Lacaille txerpolaria eta Alexandre zamaketaria, Claude Lantierren laguna, **alboratu** ziren haiengana. Karlos Zabala

" erran nion hari **alboratuz** . Jon Muñoz

Txirrindua gidoinaren erditik heldu, eta **alboratu** egin natzaio. Txillardegi

Alboratu nintzaionean bidai eskaintzaren bat arreta handiz begiratzen zihardueła esan nion. Ramon Saizarbitoria

Koadro zuri-beltzetan margotuak egoten dira eta urgaineko errota horietako bat ("Jainkoak salbatuko al nau" idatzita izaten dute bi txalupa **alboraturen** gainean eraikita dagoen egurrezko etxolaren aurrealdean) hondoratu egin zen. Koldo Biguri

2 baztertu, urrutiratu, albora egin.

Gizona **alboratu** egin zen sar nendin, baina ez zuen haboro irria erakutsi. Koldo Izagirre

ANVko gudari batek esku-granada bat leherrarazi zuen, lagunengandik **alboratuta** , bere burua hiltzeko. Jokin Urain

Talde "handia eta aberatsa" osatzen dute; hala ere, **"alboratuta** " dituzte tokian tokiko gobernuek. Berria - Gaiak

Bihotzeko aldizkari batean argitaratuko zuela goitik behera gure arteko historia osoa, xehetasun txikienik ere baztertu eta **alboratu** gabe. Joan Mari Irigoien

-Ez zenion utzi behar Snape maisuari guri hau irakasten -esan zion Harryk amorruz sutan, Lockharten kutxa ostikoz jo eta **alboratuz** . Iñaki Mendiguren

Durant jauna **alboratu** egin zen limurkeriaz eta lehendabizi sartzen utzi zion neskari. Mirentxu Larrañaga

Bere papar gainean bermaturik zegoen emakumezko lokartuaren besoa poliki **alboratu** , eta ohetik jaiki zen azkenik. Josetxo Azkona

Bidea ixten zion gorpua **alboratu** , eta ausarki inguratu zen, gazteluko zilarrezko lurra zapalduz, ezkutua esekita zegoen hormaren aldera. Koro Navarro

Era berean, *nintzan, intzan* eta *zan* esaten direnez, *gintzan, zintzan* egin zituen arauzko, eta *ginean, zinean* **alboratu** . Koldo Zuazo

Zalantzak **alboraturik** , Afifiren iritzia arakatzea erabaki zuen. Patxi Zubizarreta

Hizkuntza batzuetako ahozko kate asko aztertu ondoren, haiek darabiltzaten osagaiak ezagutzea eta sailkatzea lortzen da; ohartzen gara orduan, akustikoki axolarik ez duten ñabardurak **alboratuz** gero, dauden moten kopurua ez dela bukaezina. Isabel Arrigain

Abereek ere antzeman ditzakete kanpoko objektuak gorputzaren sentimenez, oroimenean finkatu ondoren gogoraraz ditzakete eta haietarik onuragarriak hartu eta gogaikarriak **alboratu** . Imanol Unzurrunzaga

Gaur egun dauden beste metodo seguruago eta eraginkorrago batzuek, baina, erabat **alboratu** dituzte. Luis Elberdin

Norbere gogoak izan ezik, ezerk eta inork ezin duela adimena bere erregetzako tronutik bota eta ordenaren ildotik **alboratu** . Imanol Unzurrunzaga

Gauza horiek guztiak **alboratu** zituenean, pakete luze eta mehe bat ikusi zuen azpian. Iñaki Mendiguren

Edozein unetan, hodei hura **alboratu** egingo zen eta ilargia agerian utziko zuen. Iñaki Mendiguren

Seta berezia erakutsi zuen Xenofanesek, gainera, jainko metafisikoak **alboraturik** , esan dezagun, giza arrazoia jainkotzeko. Askoren artean

Zanbuluka hurreratu zen ea nor zen ikusteko, eta beneziarrak **alboratuta** Eusebiaren aurpegi musugorri eta biribila ikusi zuen. Josu Landa

Begiak hetsi dituzte presoek, burua **alboratu** . Xabier Montoia

Begiratu eta harria **alboratua** zela ohartu ziren, oso astuna zen arren. Elizen arteko biblia

Literatura **alboratuta** , ipuinak baztertuta, fede arautu eta uniformeak dakarren alferkeria uxatuta, bakoitzaren bizitza pertsonalari lagungarri izango zaizkion benetako sentimenduak aurkitu daitezke abenturarik miresgarriena, barne-saminarena, erakutsi diguten bi poeta hauen islan. Pako Aristi

AEBetako Administrazioan, baina, ez dute guztiz **alboratu** aukera hori, azken errekurtso moduan. Berria - Mundua

3 erkatu, konparatu.

Hegazkinarekin **alboratuta** zer abantaila ditu trenak? Berria - Gaiak

4 *perpaus alboratu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Baina beste askotan, **perpaus alboratu** (13.5.) edo juntatuetako (13.6.) sintagmetako elementuen artean ezartzen da korrelazioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alboratu behar (4); **alboratu egin** (17); **alboratu egin behar** (5); **alboratu egin zen** (3); **alboratu egin zituen** (3); **alboratu egiten** (10); **alboratu eta** (58); **alboratu gabe** (6); **alboratu izana** (4); **alboratu nahi** (4); **alboratu zituen** (5); **alboratu zuen** (8); **alboratuz eta** (3); **alboratzea da** (4); **alboratzeko eskatu** (10); **alboratzeko eskatu zion** (4); **alboratzen dituela** (3); **alboratzen du** (3); **bat alboratu** (4); **bidea alboratu** (4); **erabat alboratu** (3); **eta alboratu** (5); **guztiak alboratu** (4); **hori alboratzeko** (3); **kritikak alboratu** (4)

---

alboratze *iz* albora uztea.

Eta erlijioen historiak ezer erakusten badigu, alde baterako edo besterako **alboratzeak** dira. Askoren artean

Letrak **alboratzea** kolokan geratzea zen haientzat; guretzat, aitzitik, egiaranzko lehen pauso bat da, zeren hotsak bere hartan aztertzea baita, hain zuzen, bila gabiltzan euskarriaz hornituko gaituena. Isabel Arrigain

Azukrea zuritzeko burua zertxobait **alboratzea** besterik ez dut egin, baina betertzetik sartu zaidan gizonaren itxura erdikustea aski izan zait ezagutzen nuela jakiteko. Pako Aristi

Marinel zaharrak, brankan etzanda bere gizonekin, izotz puskak **alboratzea** beste zereginik ez zeukan, eta hotsik atera gabe ari zen horretan. Karlos Zabala

Heldu ondoren, megalomania hura pixka batean **alboratzea** erabaki nuen, eta interprete hasi nintzen enpresa japoniar batean. Joxan Elosegi

Hortaz, pentsamendu bakarra kritikatzen hasita, oso beharrezkoa iruditzen zait, halaber, zenbait topiko sinple erabat **alboratzea**: esaterako, aipatu den kapitalisten eta proletarioen arteko bereizketa sinplea (bide batez esanda, Marxek berak gaur egun erabiltzen den zentzu salatzaile suntsitzaileaz oso bestela erabili zuena). Iñaki Heras

Galeoi espainiarraren agerpen bat-batekoak bere soraiotik atera zuen Gustavo, eta, lema bat-batean eta kolpe bortitzez eskuinaldera biraraziz, Leviatan **alboratzea** lortu zuen, galeoia aurrez aurre jo ez zezan. Felipe Juaristi

---

alborengo *iz* biriketako hantura, mikrobio batek eragindako eritasun kutsakorra. ik**birikeria**.

Gaixotasuna argi zegoenean, baztanga edo **alborengoa** esate baterako, berak antzematen zion, eta auzoko mari-berritsuek ere bai, eta edonork. Josu Zabaleta

Alkaternatik ateratzen zen eta zura, janaria eta beste hainbat gai kontserbatzeko erabiltzen zen gaia; legenarra, **alborengoa** eta tuberkulosia tratatzeko ere erabiltzen zen. Josu Zabaleta

Makal zegoen, **alborengoa** zuen, hagatik eztula, eta hala ere erre egiten zuen. Joseba Sarrionandia

Hori guztia kontatu zion maisu errusiarrak, **alborengo** batek jota hil baino egun batzuk lehentxeago. Berria - Kultura

Ukabila oraindik airean, entzun nuen eztula, **alborengoaren** eztula erreketeen formazioaren isiltasunean. Joseba Sarrionandia

---

albornoz *iz* zapi felpadunezko txabusina, aurreko aldetik irekia, gerrian lotzen dena eta bainatu ondoren janzteko erabiltzen dena.

Albornoza jantzita, pertsona berria bailitzan sartu zen logelara. Unai Iturriaga

Albornoza ireki eta bere gorputz argal eta biluzia bistaratu zen. Unai Iturriaga

Ohiko **albornoza** edo txabusina gabe, jantzi luze loreduna zeraman soinean, eskote zabalekoa, besoak has uzten, kulero argiak iradokitzen eta zorrorik gabeko titi-puntak nabarmentzen zizkiona. Aingeru Epaltza

---

alboroke *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi) iz* ospakizun gisako otordu arina.

Anaia Jossek emaniko zakua bete patard eta Ingalaterrako eztainuzko pitxer estalkidun ederrarekin asto gainean etxeratu zenean, domeketan **alborokeak** eta astegunetan narrukadak eduki zituzten etxolan, egunero jaten ahal zuten okela eta babak. ETC-literatura, saiakera

---

albotiko **1** *izlag* albotik egindakoa.

Aipatzekoak dira, besteren artean, Jan Deregowski-k arte "primitiboei" buruz egindako ikerketak: ahalegin handia egin du Ipar Ameriketako indiarren **"albotiko"** irudikapen estiloa edo Afrikako zenbait iruditan aurki daitezkeen erabateko sinplifikazio grafikoak, eskema sinboliko handiekin dituzten loturetan oinarrituz azaltzen. Josu Zabaleta

2 *albotiko bista* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Perspektiba hori (f) irudiaren **albotiko bista** da, (f) irudian agertzen den geziak adierazten duen bezala begiratuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Halako aulkiaren bidez, umetxoa mahaiaren ertzean jesartzen da, lau ukipen-punturekin; erakut sitako **albotiko bistan**, puntu horietako bi ageri dira -A puntua, mahaiaren gainean, eta B puntua, mahaiaren azpian-. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gurpilaren **albotiko bista**, zenbait erradiotarako irteerako abiadura-triangeluekin, 90 eraitsiak plano meridianoaren gainean ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi tenplu mota horiek oinean eta **albotiko bistan** ez ezik, desberdinak dira sinbolismoan ere. ETC-entziklopedia

---

albotxu *iz adkor* albo-alboa.

Bere **albotxuan** egoan jesarrita gizon bat, beti herrira adi. Pablo Sastre

---

albufera *iz* itsasotik lur zerrenda batez banandurik dagoen ur gazia.

Valentziara iritsi baino geltoki batzuk lehenago **Albufera** ikusi zen, ispiluaren gisa distira eginez, eta handik gutxira San Francisco plazako zabaldian agertu zen Andres, orube handi baten aurrean. Josu Zabaleta

---

album **1** *iz* orriak zuri dituen liburu modukoa, argazki, zigilu, autografo eta kidekoen bilduma egiteko erabiltzen dena.

Orrietan itsatsita pastelen argazkiak zituzten **album** bat begiratu ondoren, txokolatezkoa agindu zuen, umearen gogokoena. Koro Navarro

Bi **album** bakarrik grabatu ditu Deluxek. Berria - Kultura

Aitari buruz ditudan irudiak eta oroitzapenak ugariak dira, baina ezin dute mataza osorik osatu, **album** bateko argazki solteetan bezala ikusten baitut, eta ez hasiera eta bukaera duen film batean. Anjel Lertxundi

Kaxoi batetik **albuma** atera zuen, argazkiz eta egunkari puskaz osaturikoa, eta orrialdearen zenbatgarrena buruz jakingo balu moduan zabaldu zuen. Josu Landa

Norbaitek orduan armairuaren barreneko tiraderatik **album** bat atera omen zuen emakumearen argazkiekin. Joxean Agirre

Zu atxilotu zintuen Thiellement komisarioak agintzen zuen oraindino Marseillan, munduan, bere **albuma** galtzarbean daroala dabil Europa osoan barrena, gure argazkiak

biltzen ditu eta azpian sententzia bana digu paratzen. Koldo Izagirre

Aurpegi guztiak ditu ezagun, eta irribarre ñimiño bat marraztu zaio ezpainetan Martín Villa, Carrillo, Fernández Ordóñez eta Marcos Vizcayaren irudiak sumatzerako, urruneko senideen edo aspaldiko lagunen argazki zaharrak **albumean** berrikusten dituenean bezala. Iban Zaldua

Albumean itsatsi gabe, aldizkarietatik moztutako ebakin asko ere baziren. Hasier Etxeberria

Eleberria irakurtzen amaitu eta, gurasoenera itzuli naizen aurrenekoan, familia-argazkien **albumera** jo dut zuzenean. Iban Zaldua

Nik ebakinen **album** bat izateak harritu zuen nonbait. Fernando Rey

Albuma hartu zuen Mentxuren eskuetatik eta azalak paparretan ipinita erakutsi zien. Josu Landa

Umetan, anai-arrebekin haserretzen zenean **albumeko** argazkietan boligrafoz tatxatzen zituen aurpegiak bezalakoa. Jasone Osoro

Emakumeak argazkiak kopiatzen dituen bitartean **albumeko** orriak jakinguraz igaroz segitzen dut. Edorta Jimenez

Gauza interesgarri handirik ez: bizitza osoan entzungo ez nituzkeen diskoak, aspertuaren aspertuaz heriotzara eraman zaitzaketen liburukoteak, **albumetan** txukun-txukun gordetako egunkari adabakiak. Sonia Gonzalez

Antolatzaileek ipuin kausituenak argitaratuko dituzte **album** batean. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Inspektoreak telefonoz deitu du ondoren, eta fitxatutako militanteen argazkiz betetako bi **album** handi ekarri dizkiote berehala. Rafa Egiguren

Album familiarra deitzen diote iniziatibari, eta zahar-etxean dauden askok eta askok idatziak dituzte jada beren memoriak. Anjel Lertxundi

Berehala itzuli zen egongelara, anilladun **album** gorri eta txiki batekin. Joxemari Urteaga

Hagridek duela bi urte eman zion argazki-**album** larruztatua, bere aita eta amaren argazki sorginduz betea. Iñaki Mendiguren

Louiseren giltza sarrailan entzun nuenean, ahal bezala itxi eta arrapataka itzuli nuen bere lekura begiratzen niharduen argazki **album** lodi bat. Hasier Etxeberria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Literatur **album** baterako. Anjel Lertxundi

Irekitzera ausartu gabe begiratu nituen apal okertuen sostengu gisa zituen gaztetako liburu zaharkituak, argazki **albumak**, institutuko apunteak eta eguneroko itxurako koaderno azal-lodiak. Joxean Agirre

Orrialde bat besterik ez du hartzen 1975 urteak nire argazki **albumean**. Agurtzane Juanena

4 karpeta edo estutxe baten barnean saltzen den diskoa edo disko multzoa.

Japan taldearen *Quiet life* **albumaren** hasierako kantaren lehen akordeak izan ziren erantzun bakarra. Iban Zaldua

Dutxara joan aitzin Agatak irratia eho eta KD irakurgailua piztu zuen, ilunak iluna ausikari, Michel Portalen *Minneapolis* **albumeko** jazz ahaireak hegaldaraziz. Itxaro Borda

Gogora dezagun, oraindik urte asko ez direla, pop musikaren izartegiko supernobarik distiratsuena bihurtu zela Creaming My Jeans taldea, hiru **albumekin** bakarrik gainera: Sex Secrets, Global Masturbation eta Spasms of Pleasure. Patxi Iturritegi

Aurreko astean, berriz, jazz latinoko **albumik** onenerako izendatua egon zen Barreto *Time Was - Time Is* lanarekin. Berria - Kultura

5 ***argazki album***

Argazki album bat ere biltzen du bertan. Berria - Kultura

Argazki-albuma berriro hartuta, beste behin aztertu zituen Mireiaren erretratuak. Fernando Morillo

Eskarmentu handia nuen umeak bainatzen, esan nion, eta, frogatzeko, **argazki-albuma** hartu nuen liburu-apalategitik eta Rachelen argazkiak erakutsi nizkion; haietako batean, mirariz, alaba agertzen zen, sei edo zazpi urterekin, bainuan burbuila artean. Oskar Arana

Bere liburuak albo batera bota eta azkar aurkitu zuen bila zebilena: Hagridek duela bi urte eman zion **argazki-album** larruztatua, bere aita eta amaren argazki sorginduz betea. Iñaki Mendiguren

Liburua Urrutia batek opari egindako **argazki-album** harrigarria da, XX. Edorta Jimenez

Irekitzera ausartu gabe begiratu nituen apal okertuen sostengu gisa zituen gaztetako liburu zaharkituak, **argazki albumak**, institutuko apunteak eta eguneroko itxurako koaderno azal-lodiak. Joxean Agirre

-Lopeztarren **argazki-albuma** ... -murmurikatu du aitak, amak emandako zerrendatik lehenengo itema errepikatuz. Iban Zaldua

Zakurron argazki nahiko daukat nire **argazki albumean**. Gotzon Garate

Orrialde bat besterik ez du hartzen 1975 urteak nire **argazki albumean**. Agurtzane Juanena

Ez dauka **argazki albumik**. Sonia Gonzalez

Louiseren giltza sarrailan entzun nuenean, ahal bezala itxi eta arrapataka itzuli nuen bere lekura begiratzen niharduen **argazki album** lodi bat. Hasier Etxeberria

6 ***musika album*** *(corpusean ez dago; ETCn **56** agerraldi)*

Ez hain aspaldi ezagun egin zen Lhasa de Sela La llorona **musika albumarekin**. ETC-prentsa

Herrimina: ilobaren azalaren usaina, euskaraz bizitzea, familiarekin etxe azpiko terrazan bazkaltzea, hondartzari begira egotea, oparitu zidan **musika albuma**, ahaztu ezin ditudanekin denbora pasatu ezina. ETC-prentsa

Leon Bilbaoren lehenengo grabaketa argitaratua 1977an baino ez zen ailegatuko: Kardantxa eta Movieplay zigiluek argitaratutako **musika albumean**, Maurizia Aldeiturriagarekin batera hiru pieza jotzen ditu arratiar albokariak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Musika albumak abiapuntutzat hartu baina fikzioa sortzea helburu izanik, disko bakoitzarekin ipuin labur bat asmatu eta Biodiskografiak (2011) ipuin-liburua kaleratu zuen. ETC-zientzia, zuzenbidea

"Stoikla i beton" Nikolai Noskov musikariaren bigarren **musika albuma** da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **album bat** (4); **argazki album** (5); **argazki albuma** (3); **bi album** (4); **ebakinen albuma** (6); **nire ebakinen albuma** (3); **zuen albuma** (3)

---

albumina *iz* zenbait proteina urkorren izena.

Albuminak bihotzekoak izateko arriskua txikitzen du, eta ebakuntzetan maiz erabiltzen da. Berria - Gaiak

---

alda-maldaka *adlag* zailtasunez ibileran.

Ez zuen ezagutzen nire **alda-maldaka** ibiltze oinazez bete hura, noiz zeru goian, noiz infernura amilean. Juan Garzia

---

aldaarazi, aldaaraz(i), aldaarazten du *ad* aldatzera behartu.

Bazter guzietarik ateratzen dira zoin ederragoak, bainan beti helburu berarekin, diru poxi baten sakelaz **aldaaraztea**. Herria

---

aldaba **1** *iz* burdinazko edo brontzezko peza, atean, deitzeko, jartzen dena.

Kotxetik, eraikuntza berri artean, burdinhesidun leihoa bilatzen zuen, **aldaba**, ateko arkua, bebarrua, barren-barreneko patioa. Juan Garzia

Etxe barrura egin zuen **aldabarekin** deitu ondoren. Bernardo Atxaga

-Ez dago **aldabarik** atean. Julen Gabiria

Aldaba jo eta zain geratu da. Imanol Zurutuza

Handik minutu batzuetara etxeko **aldaba** jo zuten. Txillardegi

Etxeko atearen **aldaba** eraman zion Laura Lizarraga izebari. Edurne Elizondo

Ekainaren 17an, hantxe nengoen, San Telmoko kaleburuan, San Bizente elizaren ondoko bere etxean, **aldaba** joka. Txillardegi

Metak disketxearen itxiera **aldaba** hotsa izan zen askorentzat. Berria - Kultura

2 irud/hed

Udazkenak, udatik negubidean paratzen gaituenez gero, udaren azken hondarrak oparitzen badaki, baina baita negu gordinagoaren **aldaba** jotzen ere, tarteka-marteka, giroa berdoztu eta elurraren goraintziak bidaltzen. Pello Zabala

Demagun, enpresa batean, norbaitek postu hobeagoa lortzen badu, ondokoak beti izango du lorpen hori meritu propioengatik ez dela izan pentsatzeko joera, **aldaba** onak dituelako lortu duela postua. Berria - Kirola

Esker onez betea agertu zen, ez Romanekiko, Durrutirekiko baizik; **aldaba** onak zeuzkala noski Liberto lagunak, baina Durrutiren itzala luzea zela, baita nazionalista jebo horientzat ere. Inazio Mujika Iraola

3 *adkor* zakila.

Hark kristoren **aldaba** zeukan, itzela zen hankarteko odoloste hura. Paddy Rekalde

Akordatzen haiz zelan esan huen aspaldi batean nire arrebak **aldaba** jatea gustatuko zitzaiala? Paddy Rekalde

Andreak gona jaso, kuleroak erantzi eta hankartean besarkatzen zuen Tomasitoren **aldaba** erraldoia. Paddy Rekalde

Ala Al-Dinek emakumeari ipurmasailetatik heldu zion, eta garaipenaren atea jo zuen bere **aldabarekin**. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldaba jo** (10); **aldaba jo zuten** (4); **aldaba jotzen** (3); **aldaba onak** (5); **aldaba onak izatea** (3); **etxeko aldaba** (4)

---

aldabarra *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* oletan, gabiari eusten dioten burdinazko bi ataletako bakoitza.

Aldabarrak, eztia, egurrez tailatutako piezak, harrian landutako produktuak, zapatak, bitxiak, lore lehorrak, belar usaintsuak, landarezko produktuak, haziak, artilea, kutxak, zilarrezko produktuak, zeramika artistikoa, zaku organikoak, buztinez egini- . ETC-prentsa

---

aldabera *izond* iritziz aldatzeko joera duena.

Hermafrodita guztien gisa, gure hiena hau ere espiritu bikoitzekoa zen, eta, beraz, **aldabera** bere ekintza guztietan. Karlos Linazasoro

Gure ama, ordea, izugarri mudakorra zen, **aldabera**, bere sinpatia eta harremanetan: edo egunero ikusten zuen norbait edo ez zuen sekula ikusi nahi. Fernando Rey

Niri, berriz, gatazkatsu, dudakor eta **aldaberaren** papera zegokidan haur eta gaztetan, eta ez dut uste horretaz begiratu naizenik. Aingeru Epaltza

Baina prestutasun moral handieneko gizonak ere izugarri **aldaberak** ditun besteren xarma fisikoen eraginpean. Antton Olano

Esku ikustezin **aldaberek** eraginda dantzatzen den txotxongiloaren pare. Aingeru Epaltza

---

aldaberatasun *iz* aldabera denaren nolakotasuna.

Eta gauza horiek betikoak izanen direla uste duzu, denboraren **aldaberatasunari** hain lotuta ikusten baditugu ere? Imanol Unzurrunzaga

---

aldabide *iz* aldatzeko bidea.

Badakit hedabideak aberatsenak direla, ezdeusari ez zaiola ezta hitzik ere aitortzen, baina uste dut mundu hau ez dela inoiz aldatuko, ezta **aldabidean** jarriko ere sistemak hain preziatua duen diruz leporaino dauden lekuetatik sortutako mezuekin. Pako Aristi

Aurreikus daitezkeen aro zantzu txiki eta ahulenak ere tentuz jarraitzea lehenik eta behin, "tximeletaren hego-kolpeak ere aroa **aldabidean** ezar baitezake"la kontuan izanik, atezu eta ernai, babesgo zibilari zer iragarriko. Pello Zabala

Aleph-a ikusteko aukera duen narratzaile maiteminduak -Borges izenekoa bera- harriturik eta mindurik dakusa nola munduak soraio dirauen, bere **aldabide** etengabean. Juan Garzia

---

aldaera **1** *iz* oinarri edo eredutzat hartzen den moduari buruz, desberdintasunen bat duen beste era bat.

Elizkizunak (behin eta berriz ageri direnak, bere forma eta **aldaera** guztietan: errogatiba, sermoi, letania, pazkoazko, bezpera, konjuro, sermoi, prozesio, hileta... garai batean jendearen bizimodua arautzeko elizak izandako aginte osoaren seinale). Xabier Mendiguren Elizegi

Aldaera franko baditu arrosnabar edo amodio-kanta askotan ageri den pasarte honek, baina, guziak metafora berdinekoak: otearen lorea eta txori kantaria. Patziku Perurena

Izen horiek bi baitira, ez bata bestearen **aldaera**: Jainkoa ezin izan daiteke inolako moduz eta legez Jaungoikoaren laburtze bat, baina bai Jaungoikoa Jainkoaren "luzatze" bat, hau da, herri-etimologia izenekoak sortutako beste izen bat. Iñaki Segurola

Mutaziook **aldaerak** eragiten zituzten entzimetan, eta **aldaerok** bestelakotzen enbrioi-garapenaren zenbait urrats eta, ondorioz, espezieen formak eta jokaerak. Juan Garzia

Permutazioaren **aldaera** bat da inbertsioa. Iñaki Arranz

Zerrendaren buruan, gertaeren **aldaera** guztietan, Meriadoc eta Peregrin kapitainen izenak agertzen dira. Agustin Otsoa

Lau erlijio nagusiak gai bakar baten lau **aldaera** ziren. Iñaki Mendiguren

Azkue kantu-biltzaileak Oletako Engrazi Lazkanoren ahotik ikasi zuen *Bart amarretan dontzella nintzan* hitzekin hasten den kantua, zeina baita ezkon-eguneko alargunaren kantagai zabalduaren **aldaera** bat, dakitenen arabera. Iñaki Segurola

Molièreren *Le medecin malgré lui* komediaren **aldaera** bat da eta dramaturgo frantsesak *fabliau* batetik hartu zuen gaia. Anjel Lertxundi

Asko dira elezahar honen **aldaerak**. Martin Anso

Arantzazun ezarritako irizpideen arabera, zaharrenek eta eremurik zabalenean erabiltzen direnek dute euskara batuan lehentasuna: *beltz* eta *berdin* aukeratu dira *baltz* eta *bardin* **aldaeren** ordez. Koldo Zuazo

Lehenbizikoaren arabera, forma nahiz psikologia mailako hainbat **aldaera** saia ditzaket; bigarrenaren arabera, berriz, "jatorrizko" testura errenditzeraino sakrifikatu behar ditut, eta arrazoibide ukaezinez argudiatu, gainera, suntsipen hori. Juan Garzia

Eguraldi on nahiz zital, gau oskarbi bezala erabateko ilunpe, atzera-aurrera ibiltzen zen kalesa inguruan, harik eta etxe-barrenetik zetorkion kalapitak, **aldaera** gutxirekin beti antzeratsu gertatzen baitzen, gau-festa laster bukatuko zela adierazten zion arte. Anjel Lertxundi

Errusian, bost kapitulu horien lehen **aldaera** ("goiztarrena", alegia) hobetsi dute, hango adituen ustez **aldaera** hori baita osoena eta egokiena, eta hori hartu dute eskuizkributzat. Jose Morales

'Roncoa' iragana da, bere soinu monotono eta **aldaerarik** gabekoarekin; 'punteiroa' orainaren melodia da, momentuko emozioa adierazten duena. Pako Aristi

Hona hemen aurreko jarreraren **aldaera** bat: emakumea buelta eman eta gizonaren gainean ipurdia emanez jartzea. Luis Elberdin

Hizkuntza bakoitzak eta are hizkuntza beraren **aldaerek** ere aukera ezberdinak egiten dituztela ikusi da. Lourdes Oñederra

Espinosa, ordurako lehengusuak bonnes fortunes direlakoez eta joskintzaren **aldaerez** erakusten zuen interes nekaezinaz aspertuxe, nahiago izan zuen landetxean gelditu, bere testu-liburuekin. Juan Garzia

Ziklo historiko edo kultura bakoitza "bizi estilo" bat da, eta bizi estiloen **aldaeren** ikerketa morfologikoa da historia. Joxe Azurmendi

2 (izenondoekin)

Bost atal zituen Mitxelenaren txostenak: a) ortografia, b) euskal hitz eta **aldaera** lexiko zaharrak, c) hitz berriak, d) morfologia, eta e) sintaxia. Koldo Zuazo

Aldaera fonetikoak baztertzea; esate baterako, *eskaini / eskeini / eskini, edo barri / berri, ogia / ogie / ogiya / ogixa / ogidxe*tankerakoak. Koldo Zuazo

Ahal dela, **aldaera** zaharrenen alde jokatzea: *barkatu* (ez *parkatu*), *bekatu* (ez *pekatu*), *arima* (ez *anima*)... baina zaharkituta gelditutakoak berpizten jardun gabe, hala ere: *azeri* berria hobe, *azeari* zaharragoa baino. Koldo Zuazo

Errusiar Inperioan, errusiera eta greziar alfabetoaren eslaviar bertsioaren errusiar **aldaera** handia. Iñaki Mendiguren

Egunkari pila batekin jaitsi, itzalkin baten azpian irakurtzen egon, gero bainatu, eta pizzeria batean bazkaltzera igotzen ginen, eta arratsaldean ostera berdin, **aldaera** txiki batekin: liburuak prentsaren ordez. Bernardo Atxaga

Bidaiari batek alderik alde zeharkatuko balu lurralde hori, dialekto **aldaera** txiki-txikiak soilik atzemanen lituzke herriz herri. Isabel Arrigain

Aldaera lexikoen artean bat hautatzea da bigarren ardatza. Koldo Zuazo

Garbi izan behar da hotsaren **aldaera** kontaezin guztiak direla berez alofono. Lourdes Oñederra

Sailkatuta eta deskribatuta dauden **aldaera** nagusiak hartzen dira, oro har, alofonotzat eta transkripzio fonetikoan IKUR ezberdinen bidez jasotzen. Lourdes Oñederra

Vietnameraz erabiltzen dira, besteak beste, beste kontsonante batzuen **aldaera** enfatiko gisa. Lourdes Oñederra

Pasiboak subjektua eta objektua lekuz aldatzen baditu, zuzen sortzen du (97) perpausa (98) katetik, (96) perpausaren **aldaera** pasibo gisa. Itziar Laka

Hartarako, zatiki magnetiko bat bainuen analizatu beharra (eta, beraz, uste izatekoa zen, silikatoz pobrea) eta presari men eginez, **aldaera** sinplifikatu bat saiatu nuen ber-bertan. Juan Garzia

Garapenaren estrategia edo **aldaera** ezberdinez, estrategiaren garapena. Itxaro Borda

Histrioiek ideia horren **aldaera** gaizto batean funtsatu zuten beren dotrina. Juan Garzia

3 (izenlagunekin)

Hori dela eta, batasunari begira, jatorrizko **aldaerak** , beti berberak, erabiltzearen aldekoa zen Eleizalde, semea, mendia, besoa, eskua, alaba tankerakoak. Koldo Zuazo

Egokia eta bidezkoa da giputzek horrelako **aldaerak** euren euskalkian diharduten erabiltzea, baina ez euskara batu nazionalean diharduten. Koldo Zuazo

Jakina, euskalkian diharduguneen, eskubidea dugu bertako **aldaerak** erabiltzeko. Koldo Zuazo

Mendebaleko **aldaera** peto eta jator batzuek ere aldakuntza berbera izan dute. Koldo Zuazo

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bizitzaren mailan, bi **aldaera** -pare alternatibo daude ekintza-eremua makrokosmosetik mikrokosmosera aldatzeko mugimenduan. Iñaki Mendiguren

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alabaina nik ez nuen lantokian helbide **aldaeraren** berri eman. Arroz-hautsen potetxoa hartu zuen gero, eta aurpegiko kolore-**aldaerak** berdindu zituen behin eta berriro potetxoan sartzen zuen belaki txiki batez. Aingeru Epaltza

Berarentzat ez da denborarik, edo, bestela, soilik egunen eta sasoien joan-etorriko tenperatura-**aldaera** nagien itxurapean pasatzen da, baldin eta, ipuin honen zoriz, datzaneko leku hori lur-zoruaren azaletik urrunegi ez bada. Juan Garzia

Gainazal batek bere kurbaturaren eraginez izaten duen argiztapen-**aldaera** progresiboa. Josu Zabaleta

Objektuaren beraren edo begiralearen mugimendu-**aldaera** bakoitzak transformazio-eskema (bakar) bat eragiten baitu erretinan. Josu Zabaleta

Alofono dira hiztun arruntak hautematen ez dituen hots **aldaerak** , berak zein bestek ahoskatu. Lourdes Oñederra

Bestalde, 300.000 lagun kutsatzen dira urtero botikekiko erresistentea den tuberkulosi **aldaeraz** , OMEk dioenez. Berria - Gaiak

Pekingo agintariek atzo baieztatu zutenez, hegazti gripearen giza **aldaeraz** kutsatu da 21 urteko gizonezko bat, Txina erdialdeko Hubei eskualdean. Berria - Gaiak

Txinan H5N1 birusak eragindako zortzigarren kasua baieztatu zuten atzo, eta, Japonian, 77 pertsonak birusaren H5N2 **aldaeraz** kutsatu dira. Berria - Gaiak

6 *ipar* aldaketa.

Bera erretiratuz geroztik, Michel Corné nagusiak bi **aldaera** handi eramanak ditu gaur arte: Kanbotik Itsasuko lan gunera aldatua da lantegia duela hamar urte, hogeitamar langilerekin. Herria

Avironeko ostatuan **aldaera** . Herria

Bestalde administrazio **aldaerak** oro ordezkatuak izan dira Baionako auzitegietan eta bosgarren juje bat izendatua izan da. Herria

Langileek uste dute Postan estatuko 17 000 bulegoetatik 6 000 hetsiko direla **aldaera** horien medioz, horrek ekarriko duela anitz lan posturen hestea. Herria

Barne dira jada bio laborantzaren jauzia egina dutenak bai eta ere **aldaera** hain funtsezkoaren egiteko gogoetetan abiatuak direnak. Herria

7 ***aldaera estandar*** *(corpusean ez dago; ETCn **114** agerraldi)*

Hizkuntzaren **aldaera estandarra** izaten da nazioaren neurria zertan den ongien islatzen duena. ETC-literatura, saiakera

Ez dago dudarik, noski, batua dela euskararen **aldaera estandarra** . ETC-literatura, saiakera

Prozesu osoan zehar enpirikoki neurtzen da bere frantsesezko hizkuntza-gaitasuna eta, ondorioz, aski modu errazean, natural-natural, lanpostutik kanpora gelditzen da behar adinako hizkuntza-gaitasunik ez duena (edo **aldaera estandarrarekin** ondo moldatzen ez dena). ETC-literatura, saiakera

Etxetik kanpoko lan merkatuko **aldaera estandarren** antzera, pentsa genezake haurrak haztea emaztekiarentzat hizkuntza estandarraren merkatugunea dela. ETC-literatura, saiakera

Hizkuntza baten erabilera ez da **aldaera estandar** batean agortzen. ETC-prentsa

Hemen aurkezten diren izenetan **aldaera estandarra** baino ez da erabiltzen, nahiz EHHA proiektuan berba bakoitzean aldaera asko bildu diren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta hau Europan **aldaera estandar** eta dialektoen artean gertatu diren bateratze-joerak aztertu dituztenen marko teorikoa erabiliz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Artikulu honetan, **aldaera estandarraren** eta euskalkiaren arteko konbergentzia aztertzen da, eta ez dibergentzia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alegia, **aldaera estandarra** izanez gero, orduan bakarrik litzateke hizkuntza. ETC-zientzia, zuzenbidea

Corpusa dela eta, zerbitzu aldian, nabarmengarritzat jo da hedabideek **aldaera estandarraren** zabalkundean eta hizkuntza-baliabideen lanketan duten eginkizuna. ETC-zientzia, zuzenbidea

Euskararen **aldaera estandarra** da, euskaldun guztiok elkar ulertzeko eta euskara normalkuntzaren bidean jartzeko helburuz sortu zena. ETC-entziklopedia

Euskara batuaren garaian hizkuntza nazionalen **aldaera estandarrek** ukipen fenomenoak sinpletu dituzte. ETC-entziklopedia

Hizkuntza bat ondo jakiteko, **aldaera estandarra** besterik gabe jakitea, ez da nahikoa. ETC-entziklopedia

8 ***hizkuntza aldaera*** *(corpusean ez dago; ETCn **253** agerraldi)*

Egun estandartzat ditugun hainbat **hizkuntza-aldaera** eta hainbat ahoskera, garai batean ez ziren estandarrak. ETC-literatura, saiakera

Baina bada bertze argudio bat ere, aski sakona: **hizkuntza aldaera** bat aukeratu behar bada, konforme, baina Cuzcokoa da osoena, garbiena eta eredugarriena. ETC-literatura, saiakera

Eskola-sistemaren ikuspuntutik prestigiozko **hizkuntza-aldaeratzat** hartzen dena aldaera estigmatizatua izan daiteke ikasleen ikuspuntutik, eta alderantziz. ETC-literatura, saiakera

Aragoiko Autonomia Estatutuak erkidegoan dauden **hizkuntza aldaerak** zaindu beharra aipatzen du, baina horretara mugatzen da. ETC-prentsa

"Doinu zatarra daukate Birminghamekoek" moduko esaldiek adierazten dute nola **hizkuntza aldaera** batzuk besteen gainetik baloratzen diren; botere harremanen ondorio, azken finean. ETC-prentsa

Zehatzagoak izatera, hizkuntza baino hizkerak landu behar izaten ditu, hots, komunikazio-egoera bakoitzak erabiltzen dituen **hizkuntza-aldaerak** . ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainbehera doan **hizkuntza-aldaeran** jarri dugu arreta, nafarrerakoa den hizkuntza-ezaugarrian, eta bikotearen hasieran paratu dugu (arrunt/oso, adibidez). ETC-zientzia, zuzenbidea

Estandarraz harago, hedabideek zabalkundea eman diezaiekete gizarte-talde mugatuetan soilik ezagutu ahal izan diren **hizkuntza-aldaerei**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bertan hizkuntza naturalaren **hizkuntza aldaera** geografiko eta soziolinguistikoak aztertzen dira. ETC-entziklopedia

Hizkuntzalariek **hizkuntza aldaera** bik elkarrekiko ulergarritasun handia badute, hizkuntza beraren dialektoak direla esan ohi dute. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

a ko aldaera (13); **a ko aldaera** (13); **aldaera agertu** (3); **aldaera agertu** (3); **aldaera asko** (6); **aldaera asko** (6); **aldaera bakarra** (3); **aldaera bakarra** (3); **aldaera bat** (36); **aldaera bat** (36); **aldaera bat aurkitu** (3); **aldaera bat aurkitu** (3); **aldaera bat da** (7); **aldaera bat da** (7); **aldaera batek** (7); **aldaera batek** (7); **aldaera baten** (6); **aldaera baten** (6); **aldaera batzuk** (8); **aldaera batzuk** (8); **aldaera bera** (3); **aldaera bera** (3); **aldaera berri** (9); **aldaera berri** (9); **aldaera berri bat** (6); **aldaera berri bat** (6); **aldaera berria** (3); **aldaera berria** (3); **aldaera berriak** (8); **aldaera berriak** (8); **aldaera da** (6); **aldaera da** (6); **aldaera dela** (3); **aldaera dela** (3); **aldaera den** (3); **aldaera den** (3); **aldaera edo** (5); **aldaera edo** (5); **aldaera egin** (3); **aldaera egin** (3); **aldaera eragiten** (3); **aldaera eta** (5); **aldaera eta** (5); **aldaera fonetikoak** (3); **aldaera fonetikoak** (3); **aldaera gaitzena** (3); **aldaera gaitzena** (3); **aldaera gehiago** (3); **aldaera gehiago** (3); **aldaera genetiko** (12); **aldaera genetiko** (12); **aldaera genetiko bat** (3); **aldaera genetiko bat** (3); **aldaera gisa** (3); **aldaera gisa** (3); **aldaera gutxirekin** (3); **aldaera gutxirekin** (3); **aldaera guztiak** (6); **aldaera guztiak** (6); **aldaera guztien** (4); **aldaera guztien** (4); **aldaera guztietan** (4); **aldaera guztietan** (4); **aldaera hori** (12); **aldaera hori** (12); **aldaera horiek** (6); **aldaera horiek** (6); **aldaera horrek** (3); **aldaera horrek** (3); **aldaera izan** (4); **aldaera izan** (4); **aldaera lexikoak** (4); **aldaera lexikoak** (4); **aldaera ote** (4); **aldaera ote** (4); **aldaera txiki** (5); **aldaera txiki** (5); **baina aldaera** (3); **baina aldaera** (3); **baten aldaera** (3); **baten aldaera** (3); **bere aldaera** (4); **bere aldaera** (4); **beste aldaera** (19); **beste aldaera** (19); **beste aldaera bat** (7); **beste aldaera bat** (7); **bi aldaera** (16); **bi aldaera** (16); **bi aldaera genetiko** (3); **bi aldaera genetiko** (3); **birus aldaera** (19); **birus aldaera** (19); **birus aldaera batek** (3); **birus aldaera batek** (3); **birusaren aldaera** (20); **birusaren aldaera** (20); **birusaren aldaera berri** (3); **birusaren aldaera berri** (3); **diren aldaera** (3); **diren aldaera** (3); **duen aldaera** (3); **duen aldaera** (3); **eta aldaera** (18); **eta aldaera** (18); **gaitzaren aldaera** (5); **gaitzaren aldaera** (5); **gaitzaren giza aldaera** (4); **gaitzaren giza aldaera** (4); **genearen aldaera** (4); **genearen aldaera** (4); **genearen aldaera bat** (3); **genearen aldaera bat** (3); **giza aldaera** (9); **giza aldaera** (9); **giza aldaera izan** (3); **giza aldaera izan** (3); **gripearen aldaera** (7); **gripearen aldaera** (7); **gripearen birus aldaera** (4); **gripearen birus aldaera** (4); **gripearen giza aldaera** (5); **gripearen giza aldaera** (5); **hainbat aldaera** (7); **hainbat aldaera** (7); **hegazti gripearen aldaera** (4); **hegazti gripearen aldaera** (4); **honen aldaera** (3); **honen aldaera** (3); **horren aldaera** (8); **horren aldaera** (8); **ko aldaera** (13); **ko aldaera** (13); **lehen aldaera** (6); **lehen aldaera** (6); **zori aldaera** (3); **zori aldaera** (3)

aldaerak dira (7); **aldaerak eta** (4); **aldaerak jota** (6); **aldaerak onartzen** (3); **aldaeraren bat** (7); **aldaeraz kutsatu** (3); **aldaeren artean** (3); **birusaren aldaeraren** (3); **birusaren aldaeraren bat** (3); **birusaren aldaerarik** (4); **giza aldaerak** (13); **giza aldaerak jota** (4); **giza aldaeraren** (4); **giza aldaeraz** (3); **gripearen giza aldaerak** (9); **gripearen giza aldaeraren** (4); **honen aldaerak** (3); **horren aldaerak** (5)

---

aldaeratsu *iz* aldaerez betea.

Beethovenen hamabigarren sonatari ekin zion gero, eta fughettarekin ez bezalako giro barea lortu zuten berehala aurkezpeneko andante **aldaeratsuaren** konpasek. Anjel Lertxundi

---

aldaezin *izond* ezin aldatuzkoa.

Hirugarren belaunaldiko zibilizazio bat eliz gorputzetik irteten denean, bigarren belaunaldiko zibilizazio "gurasoa" berriro jaiotzea al da bide **aldaezin** eta ezinbestekoa hura gauzatzeko? Iñaki Mendiguren

Jaungoikoa Ongi **Aldaezin** eta Gorentzat hartzen da; Beragandik datoz ondasun guztiak. Imanol Unzurrunzaga

Nire uste izugarri hauek ez direla eldarnioak erakustearren, eta orain ere beti bidaialagun **aldaezin** izan dudan zuhurtziari eskua emanik, hitz bi soil-soilik: [...]. Karlos Linazasoro

Egin beharrekoak nola behar zuen zehatz-mehatz finkatuta zegoen, arau **aldaezin** batzuen bidez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Objektu batek ezin dio besteari kalte egin, edozeinek ikusten duelako bertute politiko hutsak zenbateraino utzi behar dion leku Jainkoarengandik eratortzen den bertute **aldaezinari**. Juan Martin Elexpuru

Neure buruarengatik egin dut zin, promes sendoa, hitz **aldaezina** eman dut: Belaun oro nire aurrean makurtuko da, eta mihi orok nire izenean zin egingo. Elizen arteko biblia

Badira, jakina, egia-balio **aldaezinak** dituzten perpausak; matematikakoak dira berezienak. Askoren artean

"Zure hitza, Jauna, betierekoa da, zerua bera bezalakoa" (Sal 119, 89), esan balu bezala **'aldaezina** da, iraunkorra'. Xabier Kintana

Zuk jakin behar duzu Jainkoa (ohoratua eta goretsia izan bedi!) ez dela inola ere gorputz bat, eta **aldaezina** dela, gelditasunak aldean aldaketa dakarrelako. Xabier Kintana

Ezinbestean onartu beharko duzue zuen sistemaren kontrako ondorio hau, alegia, onartu ez ezik aitortu ere egiten duzuen natura hau, ongi gorena, **aldaezina**, barneraezina, ustelezina, bortxaezina dela, hala ez balitz ezin izango baitzen ongi gorena, hobezina; natura honek ezin du kalterik jasan. Imanol Unzurrunzaga

Erroak **aldaezinak** direla esatea da erro horiek ez dutela aldaketa fonetikorik jasan; eta inork ezin esan dezake erro horietan ez dela inoiz aldaketarik izango. Isabel Arrigain

Estoikoentzat Inperioko legeak ez dira giza konbentzioak, *Logos* eternalaren azalpena den, Lege eternal unibertsoa arautzen duenaren adierazpenak baizik, **aldaezinak** berak ere, denboragabekoak. Joxe Azurmendi

Lurralde hau, ordea, uharte bat da eta izadiak berak muga **aldaezinetan** itxi du. Ibon Uribarri

Jaungoikoa, esentzia soil, **aldaezina**. Imanol Unzurrunzaga

· Jaunak, Israelen Jainkoak, **aldaezineko** ituna egin zuela, Davidi eta beronen ondorengoei Israelgo erregetza betiko emanez. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldaezin bat (4); **aldaezin batzuk** (3); **aldaezin eta** (6); **aldaezina da** (18); **aldaezina da eta** (3); **aldaezina dela** (9); **aldaezina delako** (3); **aldaezina den** (5); **aldaezina eta** (5); **aldaezina ez** (4); **aldaezinak direla** (3); **aldaezinak eta** (3); **era aldaezinean** (5); **eta aldaezin** (8); **eta aldaezina** (23); **eta aldaezina da** (3); **eta aldaezina dela** (3); **eta aldaezinak** (5); **hau aldaezina** (3); **lege aldaezinen** (4); **ongi aldaezinetik** (3)

---

aldaezintasun *iz* aldaezina denaren nolakotasuna.

Maisu honek aipatzen duen **aldaezintasuna** ez dago egimenean, denboraren aspektupean ikusitakoan. Joan Mari Lekuona

Istorio moral hauek, giza okupazioaren hondakin-geruzak leku batean metatzeko beharko zuten denbora-tartea kalkulatzen ahalegintzeko oinarri gisa, aldaketa-tempoan **aldaezintasunaren** hipotesiaz fidatzeko arriskuaren aurka ohartarazten gaituzte. Iñaki Mendiguren

Ikurraren **aldaezintasuna** eta aldakortasuna. Isabel Arrigain

Hori da juduen itsutasunaren sorburua, ez ikustea ebanjelioaren ekonomia Jainkoaren asmoen ordenan dagoela, eta haren **aldaezintasunaren** segida dela.Liturgiak liturgia, oposizioak oposizio, estatuko bi alderdi nagusiek bat egiten dute trantsizioak emaniko itun politikoaren muinean: subiranotasunaren egoitzaren **aldaezintasunean**, alegia (hori da joko araudia, estatu ituna). Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldaezintasunari buruz (3)

---

aldagabe *(orobat **aldatu gabe** eta **aldatugabe**)* **1** *izond* aldaketarik ez duena. ik **aldatu 2**.

Halaxe izango zen, baldin eta neskaren ibilaldiak bereak bezalakoak balira, **aldagabeak** eta metodikoak, eta bereak bezala toki jakin batera mugatuak. Trena han zihoan zurezko etxez eta eliza pintatuz osatutako herri txiki-txikietan barrena, eta Tolstoiren garaiko mundu bat ekarri zidan niri gogora, ehun urtez batere **aldatu gabea**. Koro Navarro

Arte obraren bizitza amaren oihu hartan adierazi behar den unean, beti entzungo litzateke oihu hori: **aldatu gabea** eta ezin aldatuzkoa bere formari dagokionez, baina ez

errepika mekaniko bat bezala, ez kanpoko beharkizunek behartutako errepika bezala, bestela baizik, bizi eta berri bezala, beti-beti ustekabean sortua: bere forma ezin higatuzkoan baltsamaturik. Josu Zabaleta

Ez konkistak ez joputasunak ez die odola herri arrotzekin nahasi; beren mintzaira sortu zen lehen mendeetan bezain garbi eta **aldatu gabea** dute gorde; lanerako eta aisiarako tresnen sortzeak ez die ekarri antzinako azturen katea eten zezakeen neholako hondamenik. Berria - Kultura

Latinaren iturburutik edanda, gaurko gaztelaniak bikote ezaguna ageri du: aldaera bata *(madera)* latin arruntaren bilakaeraz sortua eta bestea *(materia)*, aldiz, filosofia liburuetako kultismo **aldatugabe** modura heldua. Xabier Kintana

Gurasoen etxe **aldatugabea**. Iban Zaldua

2 (adizlagun gisa)

Nire onetatik aterata, jauzi batez zutitu nintzen; Usherren kulunka neurtuak berriz **aldagabe** jarraitzen zuen. Koro Navarro

Halaxe gerora ere, turkiarrekiko mugei **aldagabe** eusten zien etxeari eman zitzaion Inperioa. Iñaki Iñurrieta

Ikasleak, bitartean, hontzak soilik egiten duen antzera, **aldagabe** begira zeuden Ingurune arloko irakasleari. Josetxo Azkona

Badakizu, nik dena bizitzea nahi nuke, dena martxan hastea, ezer geldirik ez utzi, dena mugitzera bultzatu, gizonak, emakumeak, negozioak, makinak, meategiak, ezer ez geldirik, ezer ez **aldagabe**. Koro Navarro

---

aldagai **1** *iz* matematikan, zenbaki balio desberdinak har ditzakeen ikurra, gehienetan letra baten bidez adierazten dena; hedaduraz, logikan erabiltzen den kidekoa; banako talde batean alda daitekeen ezaugarria.

P **aldagai** bat baino gehiagokoko polinomioa da, eta haren koefizienteak zenbaki osoak edo arrazionalak dira. Jon Muñoz

Idazketa-plangintza egiterakoan hiru **aldagai** hartuko dituzu kontuan: eredu desberdinak, edukiaren balorazioa eta denbora. Askoren artean

Horretarako hiru **aldagai** jasotzen ditu: bizi-itxaropena, heziketa maila eta diru sarrerak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Burtsen porroten zergatia konplexua izan ohi da, **aldagai** asko baitaude jokoan; baina konplexua izanik, oinarrian ulertu beharrekoa ez da oso zaila. Iñaki Heras

Zientzialarien arabera, bikoiztu egin da munduan uraren erabilera, eta asko dira jendearen beharrei erantzuteko adina dagoen jakiteko dauden **aldagaiak**: hazkunde demografikoa, nekazaritzako gehiegizko erabilera eta ibaien gehiegizko ustiaketa, besteak beste. Berria - Mundua

Asegarria gertatzen den ala ez ikusteko, **aldagai** hori interpretazio-unibertsoko elementu guztiekin ordezkatu behar dugu. Askoren artean

Sarritan ekonomilariek erabiltzen dituzten ereduek kritika handiak jasotzen dituzte, ez baitira kontuan izaten, askotan, errealitatean edo praktikan oso garrantzitsuak diren **aldagai** eta gertaerak. Iñaki Heras

Saio enpirikoa egin beharko zuen problemaren **aldagaia** askatzeko. Fernando Morillo

Diruen flotazioak, 1973tik aurrera, eta petrolioaren krisien ondorioz gertaturiko truke-baldintzen aldaketek kontzientzia berria sortu zuten elkarrekiko mendekotasunari buruz; era berean, prezioen **aldagaiei** buruz ziurgabetasun erabatekoa ekarri zuten, nazioarteko harremanen eta nazio-politiken jokamoldearen ikuspuntutik. Koro Navarro

Etorkizunean egingo den neurketak, hala ere, beste ezaugarri batzuk izango ditu, eta ikasleek ematen duten iritzi hori izango da unibertsitate baten kalitatea neurtzeko erabiliko den **aldagaietako** bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Behin zehaztu ondoren, zenbait **aldagairen** bidez, zein diren berrogeita hamar unibertsitaterik hoberenak, gero beste sailkapen mota batzuk egiten dira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Berrogei **aldagaiko** ekuazio arriskutsua. Fernando Morillo

Kateen **aldagai** gisa, X, Y, Z, W erabili ditugu. Itziar Laka

2 (izenondoekin eta izenlagunekin)

Ekonomiaren **aldagai** errealetan (eskaria, jarduera, enplegua) geratzen da atzerriko kontuak doitzearen kostua. Koro Navarro

Ez zuten ulertu nahi gizarte berdintasuna ezin zela lortu **aldagai** ekologikoa kontuan hartzeke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Pertzepzio horren aldaerak, finkatzen zailagoak dira teoria analitikoetan baino, eta konplexuagoak dira, halaber, beren egiturari dagokionez; **aldagai** konplexuaren ideia Gibsonen teoriaren muin-muinean dago, eta ehundurazko gradienteak behin eta berriro proposatzen dira adibide gisa. Josu Zabaleta

Bada beste kontu bat ere bereziki interesgarria dena **aldagai** fonetikoen analisi fonologikorako. Lourdes Oñederra

Baldin **aldagai** nominalak (prezioak eta soldatak) truke-tasen bariazioari berehala egokitzen ez bazaizkio, konkurrentziaren ondoriozko hobetzeari esker, eskaintza nazionalaren alde aldatuko da merkatu-kuota, eta horrela bigundu egingo da krisiaren lehen efektu atzeragarria. Koro Navarro

Produktibitatea ez da **aldagai** teknikoa soilik, soziala ere bada. Iñaki Heras

Aldagai demografikoa, garrantzitsua da oso, eta sarriegi uzten da alde batera ekonomia kontuetan. Iñaki Heras

Egiaren kontzeptua zuzenean definitu beharrean, asegarritasunaren kontzeptuaz baliatu zen aurretik, **aldagai** askeak dituzten formulak ere kontuan hartzeko. Askoren artean

Arazoaren atzean, nola ez, agerian jartzen diren balizko alderdi tekniko edo ekonomikoez gainera, badaudela **aldagai** eta erlazio politiko sakonak. Iñaki Heras

Abstrakzioak **aldagai** ugari izan zituen. hala ere, zerbaitek huts egingo du, ausazko **aldagaiak** saihestezinak direlako. Berria - Kultura

Irudizko **aldagai** baten funtzioen teoria nagusitu zen mende hasieran: Cauchy, Riemann, Weierstrass. Jon Muñoz

Teoria hauen arabera, konbinazio horietan, algoritmo horietan, erretinako informazioaren analisitik atera daitezkeen berezko **aldagaiez** gainera, bestelako gertaera batzuei dagozkien kanpotiko **aldagaiak** ere sartzen dira. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aldagai-sinboloak terminoak dira. Askoren artean

Hara, **aldagai** kate luze horien lekuko, duela gutxi jazotako bi adibide bitxi. Iñaki Heras

Segur aski, ez genuke irizpide finko batekin bat egingo, **aldagai** sare batekin baizik, isoglosa zenbaitekin, zeren eta nik uste dut horren antza izango lukeela emaitzak, dialekto mapa batena. Ana Urkiza

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikuspegi integratua: lehentasuna du ingurumen-**aldagaia** sektore-politika guztietan txertatzeak, eta batez ere industrian, garraioan, energian, nekazaritzan eta kontsumoan txertatzeak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Berak antolaturiko meteorologia tailertxo bat eratu du Zarautzen, eta hor dabil itsasoko eguraldi **aldagaiei** erreparatzen, galernak eta antzerakoak nondik antzemango. Pello Zabala

Diru politika, ekonomia gidatzen saiatzen da; izan ere, diru-**aldagai** eta kredituaren kontrolaren bidez, jarduera ekonomikoaren nondik norakoan eragitea posible baita. Iñaki Heras

Logika honentzako semantika bi balioduna izango da, hau da, proposizio-**aldagai** bakoitza egiazkoa edo faltsua izango da. Askoren artean

Hona hemen PLko formulak zehazten dituzten arauak: Proposizio-**aldagai** guztiak PLko formulak dira. x **aldagaiaren** funtzio bat baldin bada f (x), haren deribatua f' (x) adieraziko da. Askoren artean

5 ***aldagai aleatorio*** *(corpusean ez dago; ETCn **187** agerraldi)*

Probabilitate teorian eta estatistikan, zorizko aldagaiak (ausazko aldagaia, **aldagai aleatorioa** edo aldagai estokastikoa) zorizko saiakuntza bateko balizko emaitzetatik eratortzen diren zenbakizko balioak biltzen ditu, hau da, zorizko balioak hartzen dituen aldagai bat da. ETC-entziklopedia

Bariantza **aldagai aleatorio** baten probabilitate-banaketaren bigarren graduko une zentrala da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldagai aleatorio kuantitatiboak diskretuak edo jarraituak izan daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mixed generalized linear models deitutako estatistika-eragiketen bidez, hiztuna bezalako **aldagai aleatorioak** (random variables) gainerako aldagai finko deiturikoekin (fixed variables) batera azter daitezke, hau da, adin, genero, eta abarrekin batera. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***aldagai anitzeko analisi*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Datu hori bestelako aldagaiekin nola lotzen den zehaztea "oso zaila" dela uste du Etxeberriak: "**Aldagai anitzeko analisi** bat egin beharko litzateke horretarako". ETC-

prentsa

Horretarako, analisi deskriptiboa, diferentziala eta **aldagai anitzeko analisia** erabili dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Guk, paleontologoen belaunaldi erradikalak, estatistika eta ordenagailuak lotu genituen **aldagai anitzeko analisiaren** teknika ikasi genuenean. ETC-literatura, saiakera

Prozesua honako hau izan da: EGINSOFT enpresak egindako grabaketa-prozesua, datu-base etiketatu bat sortzea eta estatistikako Barwin softwarearekin lantzeko prestatzea, kalkulu-orriaren bidez, eta R estatistika-programarekin gerorako **aldagai anitzeko analisi** estatistikorako datu-base bat sortzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hainbat aldagai batera aztertzen duen **aldagai anitzeko analisiko** teknikak ere garatzen dira. ETC-entziklopedia

Estatistikan, korrespondentzia-analisia, **aldagai anitzeko analisiko** teknika bat. ETC-entziklopedia

7 *aldagai anitzeko banaketa normal* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Izan bedi x bektore bat, n osagai dituena, eta **aldagai anitzeko banaketa normal** estandarizatuari jarraitzen diona... ETC-zientzia, zuzenbidea

8 *aldagai anitzeko kalkulu* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Geometria diferentzialeko eta tentsore-kalkuluko matematikaren arloetan, forma diferentzialak hurbilketa bat dira **aldagai anitzeko kalkulura**, koordenatuen menpe ez dagoena. ETC-entziklopedia

9 *aldagai aske*

Horiek, unibertso batean interpretatzean, egiazkoak edo faltsuak izango dira, baina **aldagai askeak** dituztenek, aldiz, aldagaia nola interpretatzen den horrela izango dute egia-balioa. Askoren artean

10 *aldagai boolear* *(corpusean ez dago; ETCn 6 agerraldi)*

Batek, true balioa esleituko dio **aldagai boolear** bati, eta besteak, ostera, eragiketa (anotherOperation (--)) berri bat egikarituko du metodoei (operation (--)) dei egiten zaienean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Logika-ikuspegi batetik, i etapa Xi **aldagai boolear** batekin adieraziko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste aldetik, x bektorean ez bada agertzen, n 1 baino handiagoa den baliorik ezingo du hartu i-k. c **aldagai boolearra** erabil daiteke x agertzen denean iterazioa berehala bukatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 *aldagai dependente* *(corpusean ez dago; ETCn 22 agerraldi)*

Zientzian, aldagai independente (edo aldagai aske) eta **aldagai dependente** (edo mendeko aldagai) terminoak maiz erabiltzen dira aldagaien arteko erlazioa zehazteko. ETC-entziklopedia

Esperimentuaren diseinuan, gakoak diren bi gai ebatzi behar dira: nola manipulatu behar den aldagai independente bat hura halakotzat hartu ahal izan dadin, eta nola jardun behar duen **aldagai dependenteak** halakoa izateko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erlazionalismoaren definizioa honakoa da: "Y **aldagai dependente** bat X aldagai independente batekiko erlatiboa da". ETC-zientzia, zuzenbidea

12 *aldagai estatistiko* *(corpusean ez dago; ETCn 62 agerraldi)*

Estatistikan, **aldagai estatistikoa** ikerketa batean jasotako elementuetan ezaugarri bati buruz egindako neurketa edo jasotako datuen multzoa da. ETC-entziklopedia

Bestela, **aldagai estatistiko** kuantitatiboa diskretua dela esaten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azterketa estatistikoan aztergaiak har ditzakeen balioek **aldagai estatistikoa** determinatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oinarrizko ezagutza hori, baina, nahikoa izango da **aldagai estatistiko** baten maiztasunak aztertzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Estatistikan, **aldagai estatistikoa** ikerketa bateko elementuetarako neurtzen den ezaugarri bat da. ETC-entziklopedia

Interesa handia jarri zuen **aldagai estatistikoetan** oinarritutako giza portaera aurreikusteko aukeran. ETC-entziklopedia

Aldagai estatistikoa populazio bati buruz egin nahi den ikerketa (galdeketa edo inkesta batean, adibidez) jakin nahi den banako bakoitzaren ezaugarri edo informazioa da. ETC-entziklopedia

13 *aldagai independente* *(corpusean ez dago; ETCn 239 agerraldi)*

Zientzian, **aldagai independente** (edo aldagai aske) eta aldagai dependente (edo mendeko aldagai) terminoak maiz erabiltzen dira aldagaien arteko erlazioa zehazteko. ETC-entziklopedia

Izan ere, konfiantza **aldagai independente** hartu eta hipotesi gisara herritarren berekoikeria defendatzeak larregi du zinismotik. ETC-prentsa

Gainera, politikarienganako sinesgarritasun eza eta politikarekiko aldentzea bere horretan ulertu baino, egokiagoa litzateke horien zergatia ere analizatzea, **aldagai independente** gisara fatalismoa, atsekabea eta zinismoa ulertzeko erabili ordez. ETC-prentsa

Ez dut uste horrelako promesik egitea bere esku dagoenik, neurri handi batean gure eszenatoki politikoan ETA **aldagai independentea** delako, eta Ibarretxek inork baino hobeto badaki noraino baldintza dezakeen eszenatoki hau. ETC-prentsa

Sistemak bete beharreko baldintza-kopurua handitu ahala, murriztu egiten da **aldagai independenteen** kopurua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horiek guztiak bi **aldagai independente** dituzten z=z (x, y) formako funtzioak dira, non x eta y **aldagai independenteak** baitira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erregresio-analisirik sinpleenak **aldagai independente** bat behar du gutxienez (klimaren neurketa, adibidez), eta mendeko beste aldagai bat (uztaren produkzioa, kasurako). ETC-zientzia, zuzenbidea

Kobariantza analisiak A. emozionala **aldagai independentearen** efektu nabariak erakutsi zituen (batez besteko m=4,89; SD=2,02; N=1,37) 1 beldurra aldagai dependentearekiko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretarako, faktore batean edo gehiagotan, hau da, **aldagai independenteetan** aldaketa sistematikoak egin eta, horren ondorioz, beste faktoreetan -hau da, mendeko aldagaietan- agertzen diren emaitzak bilatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esperimentua: **aldagai independentean** aldaketa sistematikoak egin eta mendeko aldagaietan agertzen diren aldaketak bilatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Funtzioa bi aldagairen arteko menpekotasun-erlazioa da, halako moldez non **aldagai independentearen** balio bakoitzari menpeko aldagaiaren balio bakarra dagokion. ETC-zientzia, zuzenbidea

14 *aldagai kategoriko* *(corpusean ez dago; ETCn 27 agerraldi)*

Estatistikan, aldagai kualitatiboa edo **aldagai kategorikoa**, datu kualitatiboak edo datu kategorikoak ere deituak, kualitate edo nolakotasun huts bat, eta ez kopuru bat, adierazten duten aldagaiak dira, elementuak kategoria ezberdinetan sailkatuz. ETC-entziklopedia

Aldagai kategorikoak eta alegiazko aldagaiak: bi faktore kualitatibo edo gehiago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Faktoreak datuak sailkatzeko eta antolatzeko erabiltzen diren eta maila kopuru fin itoa duten **aldagai kategorikoak** dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldagai kategorikoen kasuan, atributuek kategoria desberdinak har ditzakete eta hiru eratakoak izan daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, **aldagai kategorikoak** ezaugarri kualitatiboak deskribatzen dituen balioak hartzen ditu (bizilekua, sexua eta erlijioa, besteak beste). ETC-zientzia, zuzenbidea

15 *aldagai kualitatibo* *(corpusean ez dago; ETCn 79 agerraldi)*

Estatistikan, **aldagai kualitatiboa** edo aldagai kategorikoa, datu kualitatiboak edo datu kategorikoak ere deituak, kualitate edo nolakotasun huts bat, eta ez kopuru bat, adierazten duten aldagaiak dira, elementuak kategoria ezberdinetan sailkatuz. ETC-entziklopedia

Azken buruan, osasuna esku-hartze biologikora murrizten da, bizitza osasuntsu baterako osagai ezinbestekoak izan daitezkeen **aldagai kualitatiboagoak** alboratzeko arriskua egon daitekeelarik. ETC-prentsa

Horregatik bultzatu dugu orain **aldagai kualitatiboen** ideia hori. ETC-prentsa

Horrenbestez, **aldagai kualitatiboa** kontuan izango duten kalkuluak egiteko, zikloaren memento bakoitzari (handia, ertaina, txikia) zenbaki bat esleitu behar zaio, haren ordez erabiltzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldagaiak hartzen dituen balioak zenbakizkoak ez badira, aldiz, **aldagai kualitatiboa** dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontingentzia-taulek eta haiei lotutako hipotesien testek **aldagai kualitatiboen** (faktoreen) arteko erlazioak aztertzeko informazioa eskaintzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldagai kualitatiboak Chi karratu probarekin aztertu ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

16 *aldagai logiko* *(corpusean ez dago; ETCn 42 agerraldi)*

Bi egia-balioko logika klasikoan tautologia deitzen zaie euretan agertzen diren **aldagai logikoek** edozein egia-balioa badute ere beti egiazko emaitza (1 egia-balioa) ematen duten formula logikoei, eta kontraesana beti emaitza faltsua (0 egia-balioa) ematen dutenei. ETC-entziklopedia

Hemen, ekintzaren **aldagai logikoa** ezin da adierazpen logiko sinple batekin erakutsi, baizik eta denboragailu operadorearekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *aldagai lokal* *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)*

Funtzioetan erabiltzen diren aldagaiak, argumentuak barne, **aldagai lokalak** dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adibidean P prozedura ikus daiteke, non x1 eta x2 **aldagai lokalak** agertzen diren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lan horien ondoren, parametroak pasatzeko era desberdinen tratamendu formalari buruz eta **aldagai lokalen** inguruko problematikari buruz lortutako emaitzak osatu eta bateratu ziren beste lan askoren bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldagai lokala deklaratu den funtzioan bakarrik dago ikusgai. ETC-entziklopedia

Funtzioaren sententzia-multzoa giltzen artean idatziko da, eta bertan beharrezko izan daitezkeen **aldagai lokalen** erazagupena barnera daiteke. ETC-entziklopedia

Ideia ona **aldagai lokalak** behar den lekuetan bakarrik deklaratzea. ETC-entziklopedia

Azpirrutina-dei berri bat egiten den bakoitzean, sarrera berri bat metatzen da haren inguruko informazioarekin, esaterako **aldagai lokalak**. ETC-entziklopedia

18 *aldagai nominal*

Baldin **aldagai nominalak** (prezioak eta soldatak) truke-tasen bariazioari berehala egokitzen ez bazaizkio, konkurrentziaren ondoriozko hobetzeari esker, eskaintza nazionalaren alde aldatuko da merkatu-kuota, eta horrela bigundu egingo da krisiaren lehen efektu atzeragarria. Koro Navarro

19 *aldagai orokor* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Aurreko kasuan bezala, flag aldagai globalak adierazten du prozesu bakoitza zein egoeratan dagoen elkarrekiko esklusioari dagokionez, eta txanda **aldagai orokorrak**, aldiz, aldiberekotasunaren arazoak konpontzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ingurumen ekonomikoa. Negozioa garatuko dituzten **aldagai orokorrak** eta sektorialak. ETC-entziklopedia

20 *mendeko aldagai* *(corpusean ez dago; ETCn **158** agerraldi)*

Mendeko aldagaia, berriz, esperimentu batean aldagai independentean egindako aldaketengatik edo esku-hartzeagatik eragina izan dezakeen aldagaia da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egoerak deskribatzeko parte-hartzaileek erabili zuten hizkuntzaren abstrakzio maila izan zen **mendeko aldagai** nagusia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldagai askea euskaldun kopurua izango litzateke, eta **mendeko aldagaia** alderdi abertzaleen boto kopurua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mendeko aldagai gisa, iritzi-artikuluen kopurua neurtu zen (editorialak eta bestelakoak), baita horietan alde-aurka dimentsioan legeaz egiten zen ebaluazio orokorra ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dena den, sormena behar bezala aztertzeko, funtsezkoa da sormenaren adierazpen eta emaitzen artean **mendeko aldagaiak** neurtzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehenengo erregresioan, **mendeko aldagaia** da ohiko telebista-kontsumoa (batez besteko 115 minutu), eta bigarrenean, bideo-kontsumoa Interneten (batez besteko 90 minutu); biak ala biak aldagai ordinalak dira (6 puntuko Likert eskala). ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, filosofiaren lehen mailakotzat hartzen dira **mendeko aldagaiak** (errealitatea, egia), eta independenteak diren aldagaien (kultura, hizkuntza) fundamentutzat hartzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Entzute-denborak **mendeko aldagai** gisa aztertu dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bigarren erregelan **mendeko aldagaiari** buruzko aurreikuspenak aldagai independenteko kategoria kontuan hartuz egiten da. ETC-entziklopedia

Horrela, "x" garaiera (aldagai independente moduan) eta "y" pisua (**mendeko aldagai** moduan) lotzen dituen karratu txikienen zuzena hau izango da: ETC-entziklopedia

21 *menpeko aldagai* *(corpusean ez dago; ETCn **167** agerraldi)*

Menpeko aldagaia: efektuari dagokion balioa, eta ez kausari. ETC-entziklopedia

Aldagai askea eta **menpeko aldagaia** unitate desberdinetan neurtuak izan direnean konparatzerik ez dagoela argudiatu zuen, alegia, ezin direla kategoria desberdineko objektuak nahasi. ETC-zientzia, zuzenbidea

Teoria horren arabera, norbanakoa ingurutik isolatutako kide gisa harturik egindako ikerketa gainditu behar da: gizakia eta bere ingurua elkarrekin ikertu behar dira, elkarren **menpeko aldagai**-multzo bat baitira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Menpeko aldagai nagusia hizkuntzaren abstrakzio-maila zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Menpeko aldagai gisa extremadurar, euskaldun eta espainiar taldeen ebaluazioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adibide honetan, **menpeko aldagaiaren** (hezkuntzako per capita gastuak) eta aldagai independentearen (per capita errenta) balio-bikotea eremu bakoitzarekin dago lotuta (kokapena). ETC-zientzia, zuzenbidea

Funtzioa bi aldagairen arteko menpekotasun-erlazioa da, halako moldez non aldagai independentearen balio bakoitzari **menpeko aldagaiaren** balio bakarra dagokion. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hori egin ahal izateko, **menpeko aldagai** desberdinak hautatu beharko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

22 *zorizko aldagai* *(corpusean ez dago; ETCn **206** agerraldi)*

Probabilitate teorian eta estatistikan, **zorizko aldagaiak** (ausazko aldagaia, aldagai aleatorioa edo aldagai estokastikoa) zorizko saiakuntza bateko balizko emaitzetatik eratortzen diren zenbakizko balioak biltzen ditu, hau da, zorizko balioak hartzen dituen aldagai bat da. ETC-entziklopedia

Bidaien prezioa **zorizko aldagai**: joanekoan 45 errupia eta bueltakoan 25 gaurkoan. ETC-prentsa

Praktikan, ordea, ez da halakorik existitzen, ekoitzitako produktuaren kalitatea **zorizko aldagai** bat delako eta zoriaren araberako aldakortasun bat jasan behar duelako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zorizko aldagaia, oro har, aldez aurretik nola aldatzen den jakiterik ez dago, baina berori aztertuz gero, behatutakoa nolakoa den antzeman eta, geroari begira, horrela izan daitekeela itxaron dezakegu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oinarrizko ezaugarri horiek kontuan izanik, argi dago **zorizko aldagai** bat definitzen ari garela, eta, beraz, perturbazioaren balioak **zorizko aldagai** baten banaketaren estrakzioak izango direla. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontsideratzen da **zorizko aldagaia** dela eta k, talde kopurua, aldagaiak elkarren independenteak eta normaltasunez banatzen direla. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erregresioaren metodoan, faktoreak **zorizko aldagaiak** bailiran maneiatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horregatik, hain zuzen ere, **zorizko aldagaia** da hizkuntza gutxituaren erabilera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Estatistiko horiek **zorizko aldagai** bat osatzen dute, eta bere banaketari laginketa-banaketa deitzen zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aldagai asko** (4); **aldagai bat** (10); **aldagai batzuk** (5); **aldagai batzuk ere** (3); **aldagai berriak** (3); **aldagai ekonomiko** (3); **aldagai eta** (4); **aldagai guztiak** (6); **aldagai hori** (4); **aldagai horiek** (5); **aldagai ugari** (3); **aldagaia da** (3); **aldagaien egia** (4); **aldagaik eragin** (3); **bere aldagai** (3); **beste aldagai** (11); **beste aldagai bat** (3); **beste aldagai batzuk** (5); **duen aldagai** (4); **duen aldagaia** (4); **eta aldagai** (9); **eta aldagai berriak** (3); **hainbat aldagai** (8); **hiru aldagai** (3); **izan zen aldagai** (3); **nahastu eta aldagai** (3); **zen aldagai** (3)

---

aldagailu 1 *iz* ibilgailu batean, abiadura batetik beste batera pasatzeko mekanismoa.

Berotzen ari nintzela, **aldagailua** hautsi zait eta mekanikariak ez du pieza aldatzeko astirik izan. Berria - Kirola

Ander Vilariño pozik zen lortutako emaitzekin, lehen txandan bigarren eta hirugarren postuetan aritu baitzen, **aldagailuan** izandako arazo batek itzuli gehiago ematen utzi ez zion arte. Berria - Kirola

Rekexok **aldagailu** automatikoa hartu eta itzaldu egin zuen telebista. Joxemari Iturralde

Lagunaren eskuin eskua jostetan ibili zen pixka batean martxa-**aldagailu** laxoan, eta bidea hartu zuen gero bere buru gain kalpartsura. Aingeru Epaltza

Ferrari motor eta abiadura **aldagailua** ditugu. Berria - Kirola

Herbert bere pailazokeriatik aldenarazterik ez: trafikozainaren plantak egiten hasi da, ni oraindik oholezko euskarriaren gainean dagoen autora sartu eta, bolante aurrean eserita, dena berriro probatzearren, abiadura-**aldagailuarekin** ari naizen bitartean. Joxe Austin Arrieta

2 *abiadura aldagailu*

Gauza batzuetan parekotasunak ditu, motor eta **abiadura aldagailua** Ferrarirenak direlako. Berria - Kirola

Gaur egungo mutilek barregura ematen dute bizikletan ibiltzen direnean: lokatzetakoak, txirrinak, balaztak, argi elektrikoak, **abiadura-aldagailuak**, denetik edukitzen dute! Koldo Biguri

Herbert bere pailazokeriatik aldenarazterik ez: trafikozainaren plantak egiten hasi da, ni oraindik oholezko euskarriaren gainean dagoen autora sartu eta, bolante aurrean eserita, dena berriro probatzearren, **abiadura-aldagailuarekin** ari naizen bitartean. Joxe Austin Arrieta

3 *aldagailuaren palanka* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Gure alde zera geneukan, autobidean belozidadez aldatzea ez dela beharrezkoa, hots, **aldagailuaren palankak** ez zigula kalterik egiten. ETC-literatura, saiakera

Konfiantzaz egiten du, eskuineko eskua **aldagailuaren palankan** bermaturik eta oinak abiaduraren mugaren agindura, haserre araua hautsirik aurreratzen duten gidariekin. ETC-literatura, saiakera

Bolantea eta abiadura **aldagailuaren palanka** beti erabili izan ditut masaje modukoak egiteko. ETC-prentsa

Bizikletako **aldagailuaren palanka** engranaje-mekanismoen kontrolaren bidez nahi den transmisio-erlazioa hautatzeko erabiltzen den osagaia da. ETC-entziklopedia

4 *martxa-aldagailu* abiadura-aldagailua.

Gurpilei negar, enbrageari irrintzi eta **martxa**-aldagailuari karrank eginarazten zien. Aingeru Epaltza

Lagunaren eskuin eskua jostetan ibili zen pixka batean **martxa-aldagailu** laxoan, eta bidea hartu zuen gero bere buru gain kalpartsura. Aingeru Epaltza

---

aldagaitz 1 *izond* aldatzen zaila, ia aldaezina.

Azaroaz geroztik eguraldi **aldagaitz**, hotz eta euritsu batean bilduta bizi nintzela iruditzen zitzaidan. Joseba Urteaga

Aldaketa dela lege **aldagaitz** eta betiereko bakarra. Xabier Olarra

Bere bisita, erritu **aldagaitz** beraren arabera joan ohi zen goizero. Urtzi Urrutikoetxea

Kolorea, Newtonentzat, teoria klasikoarentzat, leku bateko zer **aldagaitz** bat zen, puntu bakoitzetik islatzen zen argiaren uhin-luzerak emana. Xabier Olarra

Gizonaren aurpegi **aldagaitza** beltzuri minbera batek itxuraldatu zuen; begiak altxatu zituen eta aho matrailak tinkatu. Elena Touyarou

Irudika ezazu emakume bat eserita, gogortasunean geldia, eta begitartea **aldagaitz**; iduri duela ez dezakeela pentsa, adi, uler; haren begi tinko-tinkoetarik aski malko jarraikiak eginahalik gabe isurtzen zaizkiola. Jon Muñoz

"Banitate malenkoniatsuz" erabakitzen du berak bere hartan eutsiko diola, sekula aldatzeke, munduaren aldakuntza **aldagaitzaren** mendekuz. Juan Garzia

Beste Job bat iruditzen zitzaien, bere barne kemen **aldagaitzagatik**. Askoren artean

Era berean, aspaldian ikusi ez dugun norbait aurkitzen dugunean, antzeko osagai **aldagaitzei** esker ezagutuko dugu, nahiz eta, bestalde, osagai **aldagaitz** horiek analizatzen zailak izan askotan. Josu Zabaleta

Ez zaiolako kasu egiten legearen ahots **aldagaitz** eta tinkoari, interpretazioen gorabehera errariei baizik. Juan Martin Elexpuru

Azken hori da Platonen teorian benetako Edertasuna, hau da, denboraz harago dagoen Forma, espaziala ez dena, ezagutzaren betiko nozio **aldagaitza**. Askoren artean

Eta nola ezer ez den aldatzen, aitzitik denak irauten, hegazti ezberdin guztiek, belaunez belaun, euren motaren orbainak gorputzean eramateraino, orduan argi dago materia **aldagaitzeko** gorputza daukatela. Xabier Amuriza

Perla argiztatuen antzera argi egiten zuten lanparek beren poste luzeen puntatik beheko ehundura bizira, zeinak, forma- eta ñabardura-aldaketa etengabean, murmurio **aldagaitz** etengabe bat igortzen baitzuen arratseko aire gris epeletara. Irene Aldasoro

Bat da jakituria, ez asko, eta gauza ulergarrien altxorrak neurrigabekoak eta bukaezinak dira jakituria horren baitan; izakien arrazoi ikusezin eta **aldagaitz** oro gauza horietan aurkitzen dira, bai eta jakituriaren sorkari diren izaki ikusgarri eta aldakorrenak ere. Imanol Unzurrunzaga

Gizaki izan beharrean, anfibio izan balitz, arrabioa izanen zela iduritzen baitzait greziar zelebre hura, bere ibilera baldar eta izakera **aldagaitz** geldoarekin. Patziku Perurena

Izan ere, Newtonen ideien arabera, **aldagaitza** da uhin-luzeraren eta kolorearen arteko erlazioa. Xabier Olarra

Eta ez al da gure Jainko hau, don Kosme, Jainkoa delako, hain zuzen ere, bakarra eta **aldagaitza**? Joan Mari Irigoien

Ekoizpen bolumenaren osaera hori ez da **aldagaitza**: politika ekologikoa oso kontuan izanik aldatu beharko litzateke. Iñaki Heras

Hain da **aldagaitza** paradigma. Patxi Altuna

2 (adizlagun gisa)

Nahitaezko baita zerbaitek **aldagaitz** irautea, gauza guztiak ezerez hutsera etor ez daitezen. Xabier Amuriza

Mundu gorpuzdunaren aldaketa orotan materiaren kantitateak **aldagaitz** dirau. Ibon Uribarri

Gaurko Lisboan orduko aztarnak bilatu, historian zehar **aldagaitz** dirauena hobeki nabarmentzearren. Markos Zapiain

Besteak, berriz, **aldagaitz** begiratzen zion. Migel Angel Mintegi

Aurpegi luze eta xaloa zuen, kosmetikorik sekula erabili gabea, noski, eta musu-kolorea **aldagaitz** ageri zuena beti. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta aldagaitz** (3)

---

aldagaiztasun *iz* aldagaitza denaren nolakotasuna.

Nazioarteko mailan, aldiz, ekoizpen-faktoreen **aldagaiztasuna** eta ekoizpen-tekniken desberdintasunak direla- eta, prezioen arteko aldeak ez dira desagertzen. Koro Navarro

Gauza bera pinakoteka eta bordatugintzako tailerrak edo pintura-lanetarako gelak ere, iparraldera begira jarriko dira, hain zuzen ere, lanean erabiltzen diren koloreek gorde dezaten aldaezineko kalitatea argiaren **aldagaiztasunagatik**. Santiago Iruretagoiena

Beharbada nazio alemanaren jite flematikoak eta, esango ahal dut, espiritu-**aldagaiztasunak** nazio frantsesarenak baino luzeago egin zion aurre gauzen nondik-norako hari, hots, feudoak, berezko joeraz bezala, familietan betikotzea zekarrenari. Iñaki Iñurrieta

---

aldagarri 1 *izond* alda daitekeena.

Esango nuke, iturri nagusiak artea eta bizitza direla, ordena **aldagarrian**. Berria - Kultura

Beretta 38 A metrailadore baten herskailua (Emilio partisanoa zèn eta haranetan atzera eta aurrera peza **aldagarriak** banatzen zebilen garaikoa). Juan Garzia

Giza arimaren hondartza **aldagarrietan** ibiltzen ikasi beharrean gaude. Anjel Lertxundi

Kristalinoa, optikaren ikuspegitik, konbergentzia **aldagarria** duen lleiar ganbilbiko bat da; aldagarritasun horri egokitzea deitzen zaio. Josu Zabaleta

Irudiek guztiz harreman **aldagarria** dute, beraz, denborarekin. Josu Zabaleta

Ipuin eta hausnarketa guztiak plazaratzeko "espazio huts eta **aldagarria**" nahi zuen zuzendariak. Berria - Kultura

Maitasun zitalak nahimena ongi iraunkorretik ongi **aldagarrira** jaistarazten du. Imanol Unzurrunzaga

Zalantzarik gabe, hasieran feudoak **aldagarriak** ziren. Iñaki Iñurrieta

Azaroaren 8tik aitzina dolarrak peso **aldagarrietara** aldatzean %10eko balio erantsia ordaindu beharko da. Berria - Mundua

Gainera, eskaintza, oso **aldagarria** izan beharko litzateke, jakintza bera eta gizartearen beharrak **aldagarriak** diren bezala. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gizaki eta herri horiek beroiek ahitu edo aldatu ezin daitezkeen eta, ondorioz, betiko gauzen kide ote dira edo, alderantziz, **aldagarriak** eta denboraz mugatuak? Imanol Unzurrunzaga

Zabalera **aldagarriko** tren autopropulsatuak. Berria - Ekonomia

Kolore **aldagarrizko** erauzkinak ematen zituzten, polit-bitxiak haiek ere, baina ezinago ezegonkorrak. Juan Garzia

Giroa oso **aldagarria** izaten zen Gran Hoteleko kafetegian. Josu Landa

2 *iz* zerbait aldatzen duen zera.

Polisemia sinboliko hagitz ugarikoa izanik ere, funtsean horixe baita sugea: gorputz arimen bizigarri, sendagarri, eta zoriaren **aldagarri**. Patziku Perurena

3 aldagaia.

Urrian eta azaroan egin ondoren, inkestaren emaitzak kuantitatiboki eta kualitatiboki aztertuko dituzte, adina, sexua, hizkuntza eta bertze zenbait **aldagarri** kontuan hartuta. Berria - Kultura

Aldagarri politiko berrien, nahiz egungo egoera politikoaren garrantzia azpimarratuz, eta gure herriaren etorkizunari arduraz eta seriotasunez heltzeko asmoa berretsiz, Ezker Abertzaleak segidakoa azpimarratu nahi du: [...]. Berria - Euskal Herria

Aldagarri bakarrak ez dira kopuruak edo bizi baldintzak. Berria - Euskal Herria

4 aldatzeko arropa; azpiko jantziak.

Egun batean Chaim Nossenek bere errezoetako xala eta filakteriak, **aldagarri** bat eta ogi zati bat zaku batean sartu, eta martxa egin zuen etxetik. Koro Navarro

Hortzetako eskuila, alkandora bat, bi **aldagarri** eta Eromen sortzailea eskuko poltsa batean sartu, eta Norteko geltokira abiatu nintzen. Ramon Saizarbitoria

Gorbata laxatu du makurtu aurretik, eta azken atorra eta **aldagarri** garbiak eta estutxe berde karratu bat hartu ditu maletatik. Pello Lizarralde

Aldagarriak garbitu zizkidan eta mahaia xehetasun txikienarekin ere ipinita izaten zuen Brest-etik itzultzen nintzenerako. Ramon Saizarbitoria

Ortzegunean, hasierako planen ariora biharamunean bueltatzekoak ginenez, egun baterako **aldagarriak** baizik ez nizkion eraman mutikoari. Aingeru Epaltza

5 ***izar aldagarri ez-erregular*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

T Tauri izarrak, **izar aldagarri ez erregular** mota bat dira, euren izena, taldeko objektu prototipikoa den T Tauri izarretik jasotzen dutena. ETC-entziklopedia

6 ***izar aldagarri irregular*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Bere motako aldagarriak bezala, T Tauri, **izar aldagarri irregular** bat da. Izar mota honen argi kurba argi kurbek, aldaketa aurreikusezin bat erakusten dute zabaltasun eta periodo tarte zabal batean zehar. ETC-entziklopedia

U Antliae, karbonozko izarra eta **izar aldagarri irregulara**. ETC-entziklopedia

7 ***izar aldagarri kataklismiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

AM Herculisen motako **izar aldagarri kataklismiko** bat da, bigarren mailako nano gorri batez eta lehen mailako nano zuri batez osatua dagoena. ETC-entziklopedia

8 ***izar aldagarri pultsante*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Hertzsprung-Russell diagraman, izar aldagarri zefeidetatik gertu dago, euren zikloa, zuzenean bere argitasunarekin lotua dagoen **izar aldagarri pultsanteak**. ETC-entziklopedia

9 ***mira izar aldagarri*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

R Cancri: **Mira izar aldagarria**, bere distira 6,07 eta 11,80 magnitudeen bitartean aldatzen delarik 361,6 eguneko epean. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldagarria da** (4); **oro aldagarria** (3); **oro aldagarria da** (3); **oso aldagarria** (3)

---

aldagarriki *iz* alda daitekeen zera.

Agerpen orok iraunkorkia (substantzia) barnebiltzen du objektua bera gisa eta **aldagarrikia** haren determinazio soil gisa, h. d., objektuaren existentzia-era baten gisara. Ibon Uribarri

Aldakuntza hori izateari utzi edo izaten has daitezkeen determinazioei baino ez dagokienez, orduan honako hau esan dezakegu, itxuraz paradoxala den adierazpen bat erabiliz: iraunkorkia (substantzia) baino ez da aldatzen, **aldagarrikiak** ez du ezein aldaketarik (*Veränderung*) jasaten, aldakuntza (*Wechsel*) baizik, zenbait determinazio desagertu eta beste zenbait agertu egiten baitira. Ibon Uribarri

---

aldagarritasun *iz* aldagarria denaren nolakotsuna.

Kristalinoa, optikaren ikuspegitik, konbergentzia aldagarria duen lleiar ganbilbiko bat da; **aldagarritasun** horri egokitzea deitzen zaio. Josu Zabaleta

Transkripzio-sistemarik osoenak ere ezin du etengabea den ahoskeraren **aldagarritasuna** jaso. Lourdes Oñederra

Jauregiko maiordomoak ez ziren arduratu kargu eta ofizioen **aldagarritasuna** berrezartzeaz; izan ere, alde horretatik nobleei ematen zieten babesari esker gobernatzen zuten; hartara, kargu handiak bizi osorako eman ziren aurrerantzean ere, eta usadio hori gero eta gehiago berretsi zen. Iñaki Iñurrieta

Beste batzuk hizkera arduragabeetan gertatzen dira, baina gainditu egiten dira hizkera zainduetan, enfasia ematen zaionean esanari, zerbaitegatik ahalegin berezia egiten denean: hor sortzen da **aldagarritasun** fonoestilistikoa. Lourdes Oñederra

Ikerketa horiek aztergai beregainak zituzten: fonetika eta aldaketa fonetikoa, **aldagarritasun** dialektologikoa, haur-hizkuntza eta (agian garrantzizkoena) TXANDAKATZE sinkronikoa. Lourdes Oñederra

---

aldagela **1** *iz* kiroldegietan eta kidekoetan, arropak aldatzeko gela. ik **aldaleku**.

11 **aldagela** eta gimnasio bat. Berria - Kirola

Hutsik zegoen **aldagela** eta presaz erantzi eta gorputzeratu nuen bainujantzia. Joxan Elosegi

Aldagela erdira etorri zen hura, gorririk, zangoak Kortajarenaren espartinetan txinalka lababoraino, eta zegoen hartan hasi zen ilea orrazten niri toaila botatuta. Koldo Izagirre

Kate andereñoak eta Julia andereñoak hartu zuten hori kontuan eta goiko bainugela bihurtu zuten andreen **aldagela**. Irene Aldasoro

Aterik gabe, alderik alde gortina batez estalita dauden **aldagela** horietakoak ziren, bata bestearen segidan zeudenak. Jasone Osoro

Lezamako **aldagela** bigarrenez zapaldu zenuenean zer pentsatu zenuen? Berria - Kirola

Baldosa zuriak gorriz zipriztinduak zeuden, komunak Athletic-eko **aldagela** zirudien. Karlos Linazasoro

Erdi itzalean etzanda, kirolari bat **aldagelan** borrokaren aurretiko minutuetan bezala sentitzen nintzen: indarrak bildu eta nerbioak baretzeko eginahalean. Ramon Saizarbitoria

Aldagelara itzuli zenean, masailak gorrituxeak zituen Kearney andreak. Irene Aldasoro

Gogor oinak astintzen jarraitu zuen Gabrielek, eta hiru emakumeak gora joan ziren, barrez, andreen **aldagelara**. Irene Aldasoro

11: 50ean kaskoak kendu, eta ilaran **aldagelarantz** abiatu zen 40 lagun inguruko lan taldea. Berria - Ekonomia

Urketaria gure **aldagelan** dutxatu zen biharamunean. Koldo Izagirre

Aldagelan zegoen, hiru orriko ispilu baten aurrean. Matías Múgica

Trinketeko **aldagelen** usaintzar berezia! Ramuntxo Etxeberri

Gauza berezirik ez: boxeorako bi zaku behar ditiagu, harez beteta dauden erraldoi horietakoak, boxeolariak **aldageletan** berotu daitezen. Harkaitz Cano

-Hotzak hiltzen nago, eta **aldageletara** noa. Joan Mari Irigoien

Hor nunbait da gertatu Duhaurekin izter ondoko zartadura, artatzen ibili ere behar ukan baitu **aldageletan**. Herria

Epaileak kontrakantxatik **aldageletarako** bidea hartzen du, oraingoz ez da inolako protestarik sumatzen, halere, tentsioa sumatzen zaio juezari. Berria - Kirola

Hotz egiten zuen **aldageletan**, eta iluntzen ari zuen. Iñaki Mendiguren

Marinel jertsez jantzitako mutilak, hondartzako **aldageletatik** hurbil eseririk [...] emakume baten irudi handi ildo-sakon bat marraztu zuen hondarrean. Koro Navarro

Beste aldiunea egin zuten biek, nagusia jesarrita berbetan eta mutikoa zutunik mugitzeari utzi barik, **aldageletarako** bidea hartu arte. Josu Landa

2 (izenondoekin)

Harrera-mahaiaren atzeko gizonak **aldagela** txiki bateko giltza eman dit, eta beste gizon gazteago batek gerri bueltan ipintzeko oihala. Jon Arretxe

Igogailuetan ibiltzeko ere arazoak edukitzen ditut nik, arnasa hasten baitzait halakoetan faltatzen eta, zer esanik ez, arropa dendetako **aldagela** txiki eta sargorietan sartu izan naizen guztietan. Hasier Etxeberria

3 irud/hed kirol talde bateko jokalarien multzoa.

Nortasun handiko gizasemea da, **aldagela** arrastoan sartzeko aproposa dirudiena. Berria - Kirola

Jokalari gazteok alaitu egin dugu Athleticen **aldagela**. Berria - Kirola

Malagan galdu ostean, lur jota al dago **aldagela**? Berria - Kirola

Depresioak jota al dago **aldagela**? Berria - Kirola

4 ***aldagela misto*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Eta, horrez gainera, **aldagela mistoko** lurra aldatzea, seinalitika berria jartzea eta ur-sanitarioaren sarearen egokitzapena egitea ere jaso du Kirol Departamentuak 2013rako aurrekontuen txostenean. ETC-prentsa

«Aldageletako solasak» insonorizatuko lituzketen **aldagela misto** modularrak. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldagela barruan (3); **aldagela eta** (3); **aldagelak eta** (3); **aldagelako giro** (3); **aldagelako giroa** (4); **aldagelan ez** (4); **aldagelan sartu** (3); **aldagelan sartzen** (3); **aldagelan utzi** (3); **aldagelara itzuli** (3); **aldagelara joan** (3); **aldagelara sartu** (3); **aldagelatik atera** (3); **aldagelatik irten** (3); **aldageletan bere** (3); **aldageletan ere** (3); **aldageletara joan** (9); **aldageletara joan behar** (3); **aldageletara joan zen** (5); **aldageletara sartu** (6); **aldageletara sartu zen** (3); **aldageletarako bidea** (10); **aldageletarako bidea hartu** (6); **baina aldagelan** (3); **da aldageletara** (3); **espanyoleko aldagelak** (3); **eta aldagelako** (4); **eta aldagelan** (4); **eta aldagelara** (3); **eta aldageletan** (3); **eta aldageletara** (9); **gure aldagelan** (3); **hori aldagelan** (3); **joan ziren aldageletara** (5); **zein aldagelan** (3); **zen aldagelan** (3); **zen aldagelatik** (3); **zen aldageletatik** (3); **ziren aldageletara** (7)

---

aldagoi *iz* haize indartsu eta euritsua.

Horixe da **aldagoi** deitu nahasketa ekaitz-giroko horrek adierazi nahi duena. Pello Zabala

Aldagoia berez, hasiera batean lehertzen denekoa izaten da, normalean. Pello Zabala

Ihes egin nahi luke, baina **aldagoiak** aurrera bultzatzen du derrigor. Joxe Azurmendi

Keniako zeruan **aldagoia** zebilen, Mau Mau gerrillakoak traidoreen lepoak mozten hasi ziren, herrian poliziak etxolaz etxola zebiltzan miaketak eta kontrolak egiten. Pablo Sastre

Zerua geroz eta ilunago jarri zen, hodei eta **aldagoi**-haizearen eraginez, eta izugarrizko erauntsia egin zuen. Elizen arteko biblia

---

aldaira *iz* aldaketa, eskuarki etxe aldaketa.

Biharko hiritarrek bezala baserritarrek mundu higikorrean erne ibili beharko dute, **aldaira** eta berrikuntzen jakinean jokatu, formakuntzak segitu eta agian noizetik noizera apailatu Intxausetakoaren gisako elgarretaratze gogoeta-egunak. Herria

Laster **aldaira** egingo dut. Xabier Olarra

Arrosatik Mendirat eginez **aldaira**, nehork ez zezakeen erran aintzinetik nola iraganen zen aurtengo jaialdi hau. Herria

Honekin hasia zen solasean Hazparneko misionestetaz kongregazio bat egiteko, **aldaira** izan zuelarik Besançonerat. Xipri Arbelbide

1980an, leku eskasez, [ikastolak] Uharte Garazirat egin behar izan zuen **aldaira**, 28 haurrekin. Herria

Azkeneko **aldairan** eta azkeneko leku berria egokitzean gidari aritu da, zeren uxerrak errukigabe jazarritako gizajoak bagina bezala ari baikara aireporturik aireportu. Josu Zabaleta

Nahi baduzu, andrea eta bioi laguntzea daukazu eta bai **aldairako** langileei ere. Matías Mujika

-Biharko kontratatu duzuen **aldaira**-enpresa horretara deitu eta ezeztatu eskaria. Oskar Arana

Eta zure berri jakin nahi hori areagotu zitzaidan arratsalde batean, eskolatik etxera bueltan, **aldaira**-kamioia etxe aurrean ikusi nuenean. Eduardo Matauko

Bihar etxe-**aldaira** egingo dut. Matías Mujika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldaira egin (4)

---

aldaize *iz* hego-mendebal haizea, aldagoia; haizetea.

Ipar mendebala ez denean, hodei busti umelez bazterrak zirtatzen; edo hego aldrebesa, zeharkako haize **aldaize** deitua, laino-zinta luxe-luxe batzuk antxintxika garraiatuz. Pello Zabala

Beste nonbaitean **aldaizea** deitzen ere aditua nago, Pello Zabalak hego-mendebalekotzat j otzen duenari. Patziku Perurena

Abantailaz jokatzen dugula horrelakoetan, horrenbeste ere esango nuke, batez ere hego-punttua dagoenean, ez beharbada, hego-mendebal edo **aldaize** traketsa dabilenean. Pello Zabala

---

aldaka **1** *iz* mehaka hezurra; zangoak gorputz enborrarekin lotzen diren bi aldeetako bakoitza.

Urtzen ginen, **aldaka**, esku eta mingainen dantzan urtu ere. Xabier Montoia

Eskuak **aldaka** eta izterretan behera labaindu zitzaizkizun. Koldo Izagirre

Haragien toles zabalek neska dantzari baten gona bilduak zekarzkioten gogora, eta azaleko gazak, azaleko farfailak andre polit baten **aldaka** ikusten uzten zuela esan ohi zuen. Karlos Zabala

Zutitu eta **aldaka** ukitzen dit aldamenetik igarotzean. Koro Navarro

Handia omen da irrist egin eta **aldaka** edo beste hezurren bat hausteko arriskua. Anjel Lertxundi

Aldaka aterata baldin badauka, bai, baina pitzatuta baldin badauka, ez. Berria - Kirola

Ganbarara igotzen zen bakoitzean, izebak madarikatu egiten zuen eskailera, eta esaten zuen egunen batean hantxe amilduko zela, eta **aldaka** hautsiko zuela, edo hankartea bestela. Juan Kruz Igerabide

Aldaka bietatik oratu behar izan nion halako batean, hori bai, oina burdin zurubiko azken mailaren bila airean haztamuka zerabilela: berehalaxe pausatu nuen zoru gainean. Joxe Austin Arrieta

Sei metrotik behera erorita, **aldaka** lau tokitan txikitu zuen arte. Alberto Barandiaren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aldaka estuak ditu, hamabi urteko neskato batenak bezain. Mutil baten itxura zeukan -bularralde guztiz emeduna, hori bai-, bere **aldaka** estu haiekin, modeloengan hala behar ere. Friedel ez zen emakume handia, baina **aldaka** zabalak eta zango sendoak zituen. Oskar Arana

Ilehoria zen, bular harroa eta **aldaka** zabalak zeuzkan: gerritik gorakoa silikonaz harrotua eta beherakoa, zelulitisak. Migel Angel Mintegi

Aldaka zabaleko emakume mardula zen; begi handi beltzak eta oso bekain kakotuak zituen. Lopez de Arana

Ile eta begi ilunak zeuzkan, eta eskote zabala eta gona motz-motza janzten zituen bular oparoak eta **aldaka** biribilak agerian uzteko. Migel Angel Mintegi

Begirada gurutzatuak, **aldaka** kulunkariak, masaila gorriak puruak mastekatzen, oliba-koloreko aurpegi iharrak. Lopez de Arana

Zaldiaren **aldaka** eroriak esekitokia ematen zuen. Lopez de Arana

Laster ezkerreko **aldaka** min ematen hasi zitzaidan. Urtzi Urrutikoetxea

Aldaka harrigarriro arinak iruditu zitzaizkidan, aldi berean sendoak halere, nire Studebaker-aren bolantea bezain eskurakoiak, airosak, eta diametroz ere paretsu. Joxe Austin Arrieta

Eskuineko **aldaka** bere lekutik kanpora, hiruzpalau saihets hautsita eta kopetan kolpe formala duela, gure Gergorio lurrean dago, elur pilo baten gainean. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Ez, ba! -erantzun zuen Pepponek, kapela atzerantz ipiniz eta ukabil erraldoiak **aldaka** gainetan josiz. Koldo Biguri

Maleta bat edo fardel astun bat esku batean hartzen dugunean, gorputzaren pi-sua baino bost edo sei aldiz indar handiagoa jasan behar izaten du beste aldeko **aldaka**-hezurrak. Irene Aldasoro

Gorputzaren pisua halako lau edo bost da **aldaka**-artikulazioak egin behar duen indarra. Irene Aldasoro

Izterrezurrari lotutako metalezko euskarri batez sendotu daiteke **aldaka**-giltzadura ahul bat. Irene Aldasoro

Osakidetzak emandako datuen arabera, **aldaka** protesi ebakuntza egiteko 69 egun gutxiago itxaron behar da eta 75 egun gutxiago kiste pilonidal ebakuntza egiteko, esaterako. Berria - Euskal Herria

Aberea izaki, Arinek ez zeukan pertsonon samurtasunik eta bere txilin puntak leku egokia topatu zuenean, **aldaka**-kolpe jarraikorrez barneratu zuen, ezpata zorroan bezalaxe. Aitor Arana

Axenario, jiratzera ausartu gabe, emeki-emeki hurbildu da, **aldaka**-mugimendu leunen bidez, baina ezin du deus entzun. Itziar Otegi

4 ***aldakako ordezkapen total*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aldakako ordezkapen totala metodo kirurgiko bat da, non aldakako artikulazioa inplante protesiko batekin ordezkatzen den. ETC-entziklopedia

5 ***txakurren aldaka displasia*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Txakurren aldaka displasia hantura mingarria eta funtzio muskularraren galera aldakako artikulazioetan. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldaka eta (6); **aldaka hautsi** (4); **aldaka maldaka** (3); **aldaka zabaleko** (3); **aldakak eta** (4); **aldakak mugituz** (3); **aldakak zabal** (3); **bere aldaka** (3); **bere aldakak** (3); **eta aldaka** (7); **haren aldakak** (6); **haren aldakak eta** (3)

---

aldakaitz *izond* aldatzen zaila, ia ezin aldatuzkoa.

Templeren aurpegiera **aldakaitz** eta serioari begiratuz, ez nintzen ziur berarentzat zer zen: metafora ala ironia. Xabier Olarra

Eta beherexeago, beste bigarren ohar **aldakaitz** hau: "S.M. la Reina, y sus augustos hijos, continúan sin novedad en su importante salud". Txillardegi

Dena **aldakaitz** agertzen zela erreparatu nuen. Txillardegi

Baita urki fosilizatuak ere, ingurua eta zura ikatz bihurtuta, eta azala argi, **aldakaitz**. Pello Zabala

---

aldaketa *(ETCn **168.810** agerraldi* **1** *iz* aldatzea. ik **aldakuntza**.

Badakit izokinaren **aldaketa** errekan sortzen den belarren batek eragindakoa dela. Hasier Etxeberria

Gauetik egunera bezalako **aldaketa** gertatu baitzitzaidan, aitak bere niganako jarrera aldatu zuenean, futbol-izar bat izango nintzela iragarrita gero. Joan Mari Irigoien

Erlojuen modukoak dira, desordena, **aldaketa** eta entropia gutxi sortzen dute, eta gizarteak berdintsu jarraitzen du belaunaldirik belaunaldi, ia historiarik gabe. Joseba Sarrionandia

Urtaro **aldaketa** zekarren egun horren zain egoten zen Maria, beraz: egun iluna behar zuen, goizetik gauera arte. Unai Elorriaga

Erabateko **aldaketa** izan zen. Luis Elberdin

Joanesek ez zekien ezer, baina pentsatzen hasia zen izen aldaketak segidan beste **aldaketa** batzuk, garrantzitsuagoak seguru asko, ekarriko zituela sokatik. Felipe Juaristi

Bezero guztiek zekiten beren gustukoa nintzela eta nahikoa zuten horrenbestez, inor ez zen urrunago besteren bila joango, neure itxuran bideraturiko ezein **aldaketa** lekuz kanpokotzat joko zuten, horra hitz egokiak nire ustez. Joxan Elosegi

Baina ezarian edo oharkabean sumatzen nituen gertakari edo egitate horiek (Monikak nigan auskalo zer **aldaketa** sumatuko zituen) ez zuten eraginik izan gure maitasunean. Joxean Agirre

Laster hasiko da **aldaketa**. Fernando Morillo

Orain aldiz zer **aldaketa**! Lehengo tiro batentzat entzuten dituzte hogei ta zenbait, eta non-nahitik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Munduko gizonik eskuzabal eta ahulena zen Ortiz, argala eta zurbil-zurbila, baina, hala ere, ez zioten barkatzen eta edozein tiranoren **aldaketa** zegoenean, preso eramaten zuten beti. Hasier Etxeberria

Edizio eta itzulpen askotan ageri den **aldaketa** da. Koldo Izagirre

Aldaketa pixkanaka gertatu zen, oharkabean, funtsezko **aldaketa** guztiak gertatzen diren moduan alegia. Iban Zaldua

Oraingoan zer argumentu erabiliko ote ditu aitak, kalesatik belaontzi batera bitarteko **aldaketa** zuritzeko? Anjel Lertxundi

Bidaiari bakanen bat igo zen nahiko hutsik zihoan trenera, eta **aldaketa** gutxi gehiago. Unai Iturriaga

Eta lur jabegoaren **aldaketa** egitekoan ere, lurraren jabe zaharrak, jaurti duen oinetakoa hartu eta, jabe berriari emanen dio. Patziku Perurena

Inori ez zitzaion oso atsegin izan **aldaketa**. Iñaki Mendiguren

Zaldizko baten hausnarketak ekarri zuen **aldaketa**. Karlos Zabala

Eta Zumarragako geltokia, umez beteta, **aldaketa** horren metaforarik ederrena ari zait erakusten. Pako Aristi

Bere bizitza loaldi etengabea izanik, zein **aldaketa** ekarriko ote zion heriotzak? Patxi Zubizarreta

-Aldaketa asko izango dun ekoiztetxean, badakin, eta Danelekin ondo portatzea komeni zaigun bioi. Anjel Lertxundi

Eguraldi jenero batetik besterako **aldaketa** zetorrenean, batez ere. Pello Zabala

2 (izenondoekin)

Bururatzen direnetik azken itxura hartzen duten bitartean, berriz, oso **aldaketa** sakonak gerta litezke. Joxerra Garzia

Arrantza-sare, izø Ingurunean **aldaketa** nahigabekoa eragiteko sare mota. Xabier Olarra

Pasillotik komedorerako bidean, garaien **aldaketa** ikaragarriak aztertzen ditudan bitartean, momentuak ze gutxi aldatzen diren konturatu naiz Amuñaren argazkia poltsikoan gordetzen dudan bitartean. Xabier Etxabe

Hura erran zidanean bere aurpegian lehengo keinu jostalari, ironiatsu hark bere hartan jarraitzen bazuen ere, haren ahotsak **aldaketa** ilaun bat jasan zuen, **aldaketa** ia antzemanezin bat, baina guztiz erreala. Alberto Ladron Arana

Hala ere, bere iradokizunak gero eta gehiagotan jartzen zituztela praktikan konturatu zen Carlos, Napumocenoren berezko asmoen itxura ematen zieten **aldaketa** txiki batzuekin bazen ere. Bego Montorio

Aldaketa erradikala izan zen, eta onuragarria Albertorentzat. Iban Zaldua

Harryren lagunen artean nork iragarriko zukeen horrelako **aldaketa** bat-bateko eta erabatekoa? Oskar Arana

Adarra jotzen, ala? Noiztik **aldaketa** sakon hori? Patxi Iturritegi

Kalean urtaro **aldaketa** nabaria da. Lander Garro

Alabaina, eta langile erailaren poema hori batzuetan ezkertiartzat hartu bada ere, sakon-sakonean ez dago **aldaketa** handirik lur eta gizon gorriekiko jarreran. Xabier Mendiguren Elizegi

Aldaketa sozial handien garaia zen hura - 1970eko hamarkadaren hasiera -, eta ez zegoen artean argitalpen seriorik Alkimiari buruz. Xabier Aranburu

Eta, ustekabean, bat-bateko **aldaketa** sakon, latz, burtzoragarri hori gertatu zitzaion. Jose Morales

Gure taldeak, sasoi hastean, **aldaketa** sakonak ezagutu zituen. Daniel Landart

Ohitzen hasiak ginen, bestalde, itxuraz behintzat, **aldaketa** etengabe hartara: gaur Isabel, bihar Amadeo, gero. Txillardegi

Aldaketa galanta eragin zuen Brasilek gizon harengan, beste gizon bat zen orain eta kosta egiten zitzaion egoera berrira egokitzea. Aritz Gorrotxategi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Maiz azaltzen zen prentsan preso hartutakoen **aldaketa** ahaleginak nola zapuztu ziren faxistek jarritako trabak eta etendako negoziazioak tarteko. Jokin Urain

Izan ere, dagokigun kasu honetan, zein dira **aldaketa** -eragile: liburua (Gogojardunak) ala gogojardunak berak; instrukzioak ala jardunak; euskarria ala mamia? Patxi Altuna

Frantziskori bizitzea tokatu zitzaion mundua **aldaketa** prozesu sakon batean sartua zegoen. Askoren artean

Finkoetan, berriz, trukea finko mantentzen da, **aldaketa** banda edo maila zehatz baten inguruan (aldaketak gertatzen badira debaluazioak edo rebaluazioak izaten dira, alegia, diru-parekotasunaren aldaketak). Iñaki Heras

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Paper-**aldaketa** garrantzitsu bat gertatzen da. Arantxa Iturbe

Etxe aldaketarekin batera, ohitura **aldaketa** ere etorri zitzaion Barojari. Josu Zabaleta

Ikuspegi **aldaketa** premiazkoa da hezkuntzan. Andoni Egaña

Zu zeu, etxe-**aldaketa** bitartean ere, ez zintudan ikusi: lan haiek guztiak zure etxezainak ikuskatzen zituen, beti laguntzeko prest zegoen zure maiordomo txiki, ileurdin eta serioak, guztia goitik behera zuzentzen baitzuen ganoraz eta ahopean. Eduardo Matauko

Gure izen **aldaketa** Franco hil baino lehenxeagoko bor-bor giroak eragin zuen, noski, baina Jontxuk ere izan zuen zerikusia, eta ez txikia gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

Ahotsen doinu **aldaketa** zitaletan, aldaka altuetan, lepo hanpatuetan, izterren kulunketan, eskuak abandonatzeko moduan, zikinkeria mordo bat igartzen zuen, denak beretzat gorderik. Karlos Zabala

Eta 7tik 8rako zori **aldaketa** horrek, ez al dirudi gure baladatako berbera? Patziku Perurena

Dena legoke halako ikuspegi-**aldaketa** bat sartzean, zeren posible baita arimaren ezagutza egiazko bat jadanik kontsideratu ditugunez bestelako ezein instantziatatik ez sortua. Piarres Xarriton

Kawabataren kasuan, gainera, askotan bide logikoa apurtzen da bat-batean, non sequitur batekin egiten dugu topo eta gai-**aldaketa** "bitxiak" gertatzen dira. Ibon Uribarri

Aro **aldaketa**. Jon Muñoz

-Eguraldi **aldaketa** edo, zeozer bada. Joxemari Urteaga

Baina Paul D-k igarri egin zion mugimendua eta arnas **aldaketa**. Anton Garikano

Hobe zen, hala ere, kasu emaitea, noiz nahi gerta baitzitekeen buruzagi **aldaketa** bat edo manu berezi bat. Eneko Bidegain

-Aizue, gure zer honetan berriz ere oso tonu **aldaketa** nabarmena ageri duk. Iñaki Iñurrieta

5 *aldaketa garai*

Arantzazuko prozesua bete-betean harrapatu zuen **aldaketa garaiak**. Berria - Kultura

Hala ere, horrek ez lituzke zertan arduratu, **aldaketa garaia** baita hau, diskurtso politiko berrien garaia, politikak behar duen tokia hartzeko garaia, txip asko aldatzeko tenorea. Berria - Harian

Era berean, «**aldaketa garai** honetan, eskubideen defentsa argia eta irmoaren bermea» izan nahi du EAk, eta horretarako lanean aritzeko konpromisoa berretsiko du aurtengo Aberri Egunean. Berria - Euskal Herria

Hori guztia **aldaketa garaian** dago oraindik, eta emakumeak lan bikoitza egiten dute -lanaldi bikoitza-, etxetik kanpo eta etxe barruan, alegia. Luis Elberdin

Zera ulertu nion jaun hari, hobekiago joango zela guztia, **aldaketa garai** arrunt gaiztoa bizi genuela une hartan baina berarekin ataka hartatik ateratzen lortuko genuela. Joxan Elosegi

Noiztenka ze buhameak zareten oihua altxatzen zen aitaren edo amaren zintzurraren hondoko gaitzespen, haurrak zainetan zirenean, ilargi **aldaketa garaietan** eter edari likitsa eraginik gabe zegoela, zizareek hertzeak korapilatzen zizkietenean adibidez. Itxaro Borda

Hala ere, aspektu hau aldatu egiten da leku batetik bestera eta kontu honi ñabardurak egin behar litzaizkioke hainbat aldetatik, izan ere, **aldaketa-garaian** eta joera ezberdin askoren arteko tentsioan bizi den gizartea baita gurea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

6 *aldaketa politiko*

Gaur egungo garapen-prozesuetan berdinberdin gertatzen da aspaldi industrializatutako herrialdeek egin zuten bidea: alfabetizaziotik iraultza demografikora, **aldaketa politiko** eta ekonomikoetaraino iritsi arte. Koro Navarro

Gerrak miseria utzi zuen gure kontinentean eta **aldaketa politiko** handiak gertatu ziren ondoko urteetan. Pello Salaburu

ETAren su-etenak **aldaketa politikoaren** prozesua sakondu duela baina oraindik ez dela amaitu azpimarratu du Diezek. Berria - Ekonomia

Euskal Herrira autodeterminazioaren bitartez **aldaketa politikoa** badatorrela frogatu dute ezkertiar eta abertzaleek hauteskundeetan lortutako emaitzek. Berria - Euskal Herria

-Askatasun sindikala, greba egiteko eskubidea... -baina erabateko **aldaketa politiko** baten bitartez izan ezik, ezinezkoak iruditzen zaizkizu. Rafa Egiguren

Aldaketa politiko, kultural eta sozial handiak bizi izan dituzu... Ana Urkiza

Gure iritziz, helburu "handi" horiek edo horien antzekoak izango liratekeenak eskuratu ahal izateko, goitik beherako **aldaketa politikoa** gertatu beharko litzateke eta, gainera, ados jarri beharko lirateke Euskal Herriko unibertsitate guztietako kide gehienak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Castroren gidaritzapean Kubak bere ideien oreka hauskorrari eusten zion Estatu Batuen blokeoaren eta **aldaketa politiko** bat eskatzen zutenen kritiken aurrean. Jon Muñoz

Babaztoak ez daki agintariaren krudelkeria imitatzen eta sendotzen baino, benetako **aldaketa politikoak** eragotziz. Markos Zapiain

Erabateko **aldaketa politiko** baten ondoren ihes egin beharrez, Alexandrian aurkitu zuen babesa, berehala egin baitzion han abegi Ptolomeok. Jon Muñoz

7 *aldaketa teknologiko*

Azken bolada honetako **aldaketa teknologiko**, epidemiologiko eta sozio-kulturalen ondorioz, "orain arteko eraginkortasun mailari eustea geroz eta zailagoa» dela onartu zuen. Berria - Euskal Herria

Eguneratzen ari diren **aldaketa teknologikoek** berebiziko eragina omen dute ekonomian eta enpresa munduan. Iñaki Heras

Gizartean **aldaketa teknologikoak** sartzea zaila izaten delako. Berria - Harian

Baina azken urte hauetan **aldaketa teknologiko** handiak gertatzen ari dira, batez ere komunikazioari dagokionez, eta unibertsitateek ere berehala erabili dituzte **aldaketa teknologiko** hauek. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Kanpoko eragileak -Hegoaldearen konkurrentzia- eta barneko eragileak - **aldaketa teknologikoak** - elkarri kontrajartzea, izan ere, artifiziala da hein handi batean. Koro Navarro

8 *egoera aldaketa*

Presentzia eta lekua lortu duten emakume sortzaile gutxiengoek **egoera aldaketarako** eragile izan behar dute, kulturako emakumeen sareak osatu behar ditugu. Berria - Kultura

Arras prest baitzegoen beti **egoera-aldaketak** definitzeko; eta berehala jartzen zien senarraren abizena ezkontzen ziren emakumeei. Fernando Rey

Denek preziatu ahal zuten halarik ere, **egoera aldaketa** nabari bat guardek, haien nagusia buru, erretore etxea okupatu zutelarik, eta han finkatu zutelarik beren egongia nagusia. Elena Touyarou

9 *gizarte aldaketa*

Orain arte pisua oparotasunaren adierazle zen Hegoafrikan, baina, komunikabideek eta **gizarte aldaketek** estetika eredua aldatzea ekarri dute. Berria - Gaiak

Era berean, "Euskal Herriaren eraikuntzaren eta **gizarte aldaketaren** aldeko» ezker abertzalearen konpromisoa berretsi zuten manifestazioan. Berria - Euskal Herria

Magala barruan garatu nahi dituzten ekimenak egiten dituzte bertan, eta Familia ereduak eta **gizarte aldaketak**. Berria - Harian

Gizarte aldaketa agintzen zuenak ezkerraren esperantza sortu zuen, baina orain hura joatea nahi dute aurkariek. Berria - Mundua

Lehena, Mendebaldeko gizakiak gizatiarra ez den naturaren gain lorturiko nagusitasuna hedatzea; bigarrena, nagusitasun horrek zekarren **gizarte-aldaketaren** lastertasun azeleratua. Iñaki Mendiguren

Garapen ekonomikoa, labur esanda, **gizarte aldaketaren** prozesua da, bai gizarte, politika edo ekonomia arloan, oro har, ongizatea areagotuz gertatzen dena, eta gizartean aukera berdintasunerako joera gailentzen duena. Iñaki Heras

Gizarte-aldaketaren eragile izan behar zutenak -klase herritarrak, alegia- dira, paradoxikoki, hedabide narkotizatzaile horien kontsumitzailerik handienak. Txema Ramirez de la Piscina

Antikontzeptiboen hedapenak eta **gizarte aldaketek** ekarri dute hori. Luis Elberdin

Izan ere, XX. mendeko lehen urte haietan, kinka larrian zegoen nobela, mende haren hasieran bizi ziren gertaera historiko lazgarriak eta **gizarte aldaketa** handiak zirela medio, alde batetik, eta errealitatea aurkezten berebiziko azkartasuna erakusten ari zen bitarteko berri baten -alegia, zinemaren -erronkari aurre egin behar ziolako, bestetik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Luxemburg hizlari apartaren ustez, iraultzaileak **gizarte aldaketak** eta herriaren nahia aintzat hartu behar ditu, bestela, egitez, ez da etsaiaren kolaboratzaile baino. Markos Zapiain

Determinismo teknologikoaren ikuspegiaren arabera, garapen teknologikoa gizartearekiko autonomo da, nahiz eta garapen horrek era berean **gizarte-aldaketak** eragiten dituen. Askoren artean

10 *klima aldaketa*

740.000 urtean izan diren **klima aldaketak** aztertu ditu zientzialari talde batek Antartidan, besteak beste, 3.100 metroko sakoneratik ateratako izotz bloke bat baliatuta. Berria - Gaiak

Lurraren berotzea eta horren ondoriozko **klima aldaketaren** aurka borrokatzeko helburua du itunak. Berria - Gaiak

Patagoniako glaziarrak urtzen ari dira, **klima aldaketa** dela eta. Berria - Gaiak

Txernobil dela edo Prestige dela, HIESa edo beste zeinahi izurrite edo **klima-aldaketaren** aurrean, zer babes eskain diezaguke Estatuak? Joseba Zulaika

Klima Aldaketari buruzko Hitzarmenean soilik izan dira lorpen partzial batzuk. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Aipagarri dira berotze globala eta ustezko **klima-aldaketa** (eta "ustezkoa" diot zientifikoen arteko akordioa ez baita erabatekoa), ozono-geruzaren arazoa, uraren eta lur geruzaren kutsadura, biodibertsitatea galtzea edota hondakinen kudeaketa, besteak beste. Iñaki Heras

11 *kode aldaketa* *(corpusean ez dago; ETCn **83** agerraldi)*

Gumperz-ek Norvegiako iparraldeko 1.300 biztanleko hiri bateko **kode-aldaketaren** gizarte-adiera aztertzeko (1972). ETC-literatura, saiakera

David Crystalek, euskaraz irakur daitekeen Hizkuntzaren iraultzan dioenez, "**kode-aldaketa** deitzen zaio pertsonek komunikatzeko bi hizkuntza edo gehiago aldi berean erabiltzeari" eta "Gaur egun **kode-aldaketa** erabiltzen dutenen kopurua erabiltzen ez dutenena baino handiagoa da". ETC-literatura, saiakera

Gero eta murritzagoa den espazio faltak **kode aldaketa** ekarri du bidaiarion artera; deklaratu gabeko gatazka batzuk piztu dira hor-hemenka. ETC-literatura, saiakera

Kode aldaketarekin nahaste handia sor ez dadin, Nafarroako Gobernuak publizitate kanpaina bat abiaraziko du irratietan, egunkarietan eta autobus geltokietako aterpeetan. ETC-prentsa

Nobelak bere estiloa du, oso zehatza, eta neure ikuspuntura ekartzean **kode aldaketa** batzuk daude. ETC-prentsa

Aitzitik, Gallardon Ministroaren **kode-aldaketa** gauzatzen bada, hau dena aldatzera doa. ETC-prentsa

Kode aldaketari oraindik bide parlamentario luzea gelditzen zaio, eta Europatik ere abisutxo bat eman diete. ETC-prentsa

Horiez gain, ohikoa da **kode aldaketak** egitea eta hizkuntzak nahastea. ETC-prentsa

Kode aldaketa horri norberak jarri behar izaten dio muga, eta komunikazio helburuen bat ba ote duen aztertu behar izaten da. ETC-prentsa

Kode-aldaketak egiten dituzten zirkuitu konbinazional logikoen artean, bi zirkuitu mota ikusi ditugu: kodetzaileak eta deskodetzaileak. ETC-zientzia, zuzenbidea

12 *leku-aldaketa* *(ETCn **329** agerraldi; orobat **lekualdaketa** ETCn **947** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **lekualdaketa** agertzen da)*

Nik ere igandean, **leku-aldaketaren** ondotik, ikaragarriko ukaldia bildua nuen. Daniel Landart

Leku-aldaketan bere liburu eta jabetza guztiak kentzen dizkiote, eta "har bat baino biluziago" uzten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Orain, hiriburuen kokapen eta **leku-aldaketa** arautzen dituzten arauen adibideak eskainiko ditugu. Iñaki Mendiguren

Leku-aldaketa egin baino sei ordu lehenago eman behar omen zuten parte komisarian, eta beldurrak nengoen gelan poliziak edukiko ote nituen zain, galdeketa egiteko. Agurtzane Juanena

Jo dezagun Kalabriako biztanleak Frantziako mugan ezarri direla; **leku aldaketa** hau dela eta, desagertua geratuko litzateke italieraren eta frantsesaren artean ikusi dugun transizio eten nabarmenik gabe hori. Isabel Arrigain

Honelako aditzek argiro frogatzen dute pasiboa subjektu eta objektuaren **leku-aldaketan** oinarritu behar dela. Itziar Laka

Bidaia fisikoak barne mugimendua dakar, **leku aldaketak** denbora astinduko balu bezala barrendik: memoria astintzea alfonbrak astintzea bezala da azken finean... Ana Urkiza

Leku-aldaketa legez egin daitekek, auzitegiek agindutakoa betez. Jose Morales

Izan ere, bere espiritua, zeruko distiratan finkatua, ez zen konturatu ez **leku-aldaketaz**, ez denbora ezberdinaz, ez eta jendetzaren presentziaz ere. Askoren artean

13 *merkataritza-aldaketa*

Nahiz eta **merkataritza aldaketa** handietara lotua egon, gerta daiteke zenbait kausa fisikok, lurraren edo klimaren zer-nolakoek, betiko finkatzea haren izaera. Iñaki Iñurrieta

14 *ontzi aldaketa* *(corpusean ez dago; ETCn **36** agerraldi)*

-Ba zorionak, ederki burutu duzu **ontzi aldaketa**. ETC-literatura, saiakera

Okerrik ezean, **ontzi-aldaketa** azaro alderako burutuko zen, Ozeano Atlantikoan, Kanariar uharteen parean. ETC-literatura, saiakera

"Elez ele: ironiaren **ontzi-aldaketa** linguistikoa" izan zuen izenburu Markuletaren hitzaldiak. ETC-prentsa

Garrantzitsua iruditu zitzaidan hitzaldian **ontzi aldaketen** aldarrikapena egitea, garraio sarea eraginkortzen duelako. ETC-prentsa

Gaur da abiatzekoa Pozzalloko portura, Erromak Catanian **ontzi aldaketa** bat egiteko biderik eman ezean. ETC-prentsa

Han, **ontzi-aldaketa** egiteko baimena eskatu zuten, baina Italiako Gobernuak ukatu izana ez da arazo handia izan azkenerako. ETC-prentsa

Beste **ontzi-aldaketarik** egin gabe eta botilaratu arte, bertan gelditzen da likidoa. ETC-prentsa

Hurrengo pausoa **ontzi-aldaketa** da: ardoa eta sedimentua bereizi egiten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Presio positiboak, gainera, ez ditu likido esterilen **ontzi-aldaketan** eta apar-eraketan hutsak dituen desabantailak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrez gain, bakoitzak nori bozkatu zion jakingo bagenu, agintaldi ezberdinetako hautagaien arteko boto **ontzi-aldaketaren** eragina neurtzeko moduan izango ginateke. ETC-zientzia, zuzenbidea

15 *paradigma aldaketa*

Horregatik esaten da ikerketa genetikoak medikuntzaren **paradigma aldaketa** ekarriko duela: sintometan oinarritutako medikuntzatik geneetan oinarritutako medikuntzara eramango gaituelako. Berria - Gaiak

Paradigma-aldaketaz mintzatu behar ote dugu, berriro, nahiz eta orain euskararen eremuko **paradigma-aldaketa** izan? Patxi Altuna

Prozesu horrek atarramentu ona izan dezan, **paradigma aldaketa** bat behar da, Garapen Iraunkor kontzeptuaren eskutik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Arlo politikoan, berriz, "etorkizunerako egoerak ikertzeko mintegia» izeneko esperientzia jarri nahi du abian, eta han "**paradigma aldaketa** » egin gura du Elkarri-k. Berria - Euskal Herria

16 *paradigmaren aldaketa* *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Paradigmaren aldaketa (batzuetan ere zientzia iraultza deitua) teoria zientifiko nagusien barruan oinarrizko ideiak aldatu direla adierazten duen esapidea da, lehendabizikoz 1962an Thomas Kuhn-ek "The Structure of Scientific Revolutions" (Zientzia iraultzen egitura) liburu ospetsuan erabilia. ETC-entziklopedia

Uraren **paradigmaren aldaketa** bat proposatzen duzue horretarako. ETC-prentsa

Postmodernitate likidoaren filosofoa Modernitate likidoa kontzeptuaz eta azken hamarkadetan mendebaldeko gizarteek izan duten kultura **paradigmaren aldaketaz** mintzatuko da. ETC-prentsa

Paradigmaren aldaketa gertatu da kulturan: sorkuntza produktu bat da, eta "erregimena legitimatzeko tresna". ETC-prentsa

Erakunde ugariren estimazioek aurreratzen dute beroketaren eragin globala oso larria izango dela mende honetan zehar, ekonomia dinamikaren eta **paradigmaren aldaketarik** ezean. ETC-prentsa

Zientziagintzaren fase horretan aurrerapena berriagoa eta apurtzaileagoa da, **paradigmaren aldaketari** edo iraultzari baitagokio. ETC-literatura, saiakera

Eta beharbada garrantzitsuena, krisialdiak lurralde-ereduaren **paradigmaren aldaketa** sortuko du? ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina ez du hori egiten legezko betebehar bat delako, baizik eta hirigintzaren eta lurralde-okupazioaren **paradigmaren aldaketa** dakarrelako, urtetako lurralde-okupazio hedakor eta espekulatiboaren ondoren. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *sexu aldaketa*

sexu aldaketa. Berria - Gaiak

Transexual guztiek ez dute generoaren nortasuna aldatzeko **sexu aldaketarik** egiten, eta Cristina Garaizabalen arabera, oso kritikoa izan behar da horrekin. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aldaketa asko (81); **aldaketa asko egin** (16); **aldaketa asko egon** (6); **aldaketa asko izan** (10); **aldaketa baino** (7); **aldaketa bakarra** (51); **aldaketa bakarra egingo** (10); **aldaketa bat** (187); **aldaketa bat behar** (6); **aldaketa bat egin** (19); **aldaketa bat egingo** (8); **aldaketa bat gertatu** (9); **aldaketa bat gertatzen** (7); **aldaketa bat izan** (10); **aldaketa batean** (6); **aldaketa batek** (19); **aldaketa baten** (27); **aldaketa bati** (6); **aldaketa batzu** (16); **aldaketa batzuen** (7); **aldaketa batzuk** (70); **aldaketa batzuk egin** (13); **aldaketa behar** (14); **aldaketa beharrezkoa** (9); **aldaketa bertan** (6); **aldaketa bertan behera** (6); **aldaketa da** (20); **aldaketa dela** (19); **aldaketa dela eta** (6); **aldaketa demokratikorako** (6); **aldaketa edo** (12); **aldaketa egin** (113); **aldaketa egin behar** (14); **aldaketa egin nahi** (7); **aldaketa egin zituen** (11); **aldaketa egingo** (84); **aldaketa egingo ditu** (72); **aldaketa egitea** (14); **aldaketa egiteko** (24); **aldaketa egiten** (17); **aldaketa egiten ari** (6); **aldaketa egitera** (6); **aldaketa egon** (22); **aldaketa egon da** (8); **aldaketa ekarri** (16); **aldaketa ekarriko** (22); **aldaketa ekarriko du** (7); **aldaketa ekarriko duela** (6); **aldaketa ekonomiko** (6); **aldaketa eragin** (18); **aldaketa eragin zuen** (7); **aldaketa eragingo** (6); **aldaketa eragiten** (12); **aldaketa ere** (21); **aldaketa esanguratsua** (9); **aldaketa eskatu** (14); **aldaketa eta** (61); **aldaketa ez** (30); **aldaketa ez da** (15); **aldaketa fonetiko** (14); **aldaketa fonetikoa** (7); **aldaketa fonetikoak** (13); **aldaketa fonetikoen** (8); **aldaketa garai** (6); **aldaketa garaia** (11); **aldaketa garaian** (7); **aldaketa garrantzitsua** (6); **aldaketa garrantzitsuak** (15); **aldaketa gauzatzeko** (13); **aldaketa gehiago** (16); **aldaketa gehiegi** (7); **aldaketa genetiko** (6); **aldaketa gertatu** (19); **aldaketa gertatu zen** (6); **aldaketa gertatzen** (9); **aldaketa gertatzen ari** (6); **aldaketa gisa** (12); **aldaketa gutxi** (42); **aldaketa guztiak** (29); **aldaketa guztien** (10); **aldaketa handi** (17); **aldaketa handia** (59); **aldaketa handia izan** (12); **aldaketa handiak** (70); **aldaketa handiak ekarri** (6); **aldaketa handiak izan** (10); **aldaketa handirik** (71); **aldaketa handirik espero** (6); **aldaketa handirik ez** (13); **aldaketa hau** (31); **aldaketa hauek** (19); **aldaketa hauen** (6); **aldaketa honek** (9); **aldaketa honen** (13); **aldaketa hori** (153); **aldaketa hori ez** (7); **aldaketa horiek** (105); **aldaketa horiek guztiak** (8); **aldaketa horiekin** (11); **aldaketa horien** (30); **aldaketa horrek** (41); **aldaketa horrekin** (11); **aldaketa horren** (46); **aldaketa horretan** (15); **aldaketa horri** (13); **aldaketa hura** (16); **aldaketa iragarri** (10); **aldaketa izan** (53); **aldaketa izan da** (6); **aldaketa izan zen** (9); **aldaketa izango** (18); **aldaketa izango da** (7); **aldaketa jasan** (7); **aldaketa nabaria** (8); **aldaketa nabaritu** (6); **aldaketa nabarmen** (12); **aldaketa nabarmena** (25); **aldaketa nabarmena izan** (6); **aldaketa nabarmenak** (15); **aldaketa nabarmenik** (27); **aldaketa nagusia** (17); **aldaketa nagusiak** (7); **aldaketa nahi** (14); **aldaketa onartu** (6); **aldaketa oro** (6); **aldaketa oso** (14); **aldaketa politiko** (37); **aldaketa politiko eta** (15); **aldaketa politikoa** (64); **aldaketa politikoa gauzatzeko** (11); **aldaketa politikoak** (15); **aldaketa politikoaren** (23); **aldaketa politikoen** (8); **aldaketa politikorako** (13); **aldaketa proposatu** (10); **aldaketa prozesu** (9); **aldaketa sakon** (19); **aldaketa sakon bat** (6); **aldaketa sakona** (32); **aldaketa sakonak** (33); **aldaketa sakonak egin** (6); **aldaketa sakonik** (6); **aldaketa sozial** (8); **aldaketa txiki** (35); **aldaketa txiki bat** (8); **aldaketa txiki batzuk** (15); **aldaketa txikiak** (22); **aldaketa ugari** (43); **aldaketa ugari egin** (8); **aldaketa ugari izan** (11); **aldaketa zela** (7)

araudi aldaketa (11); **aurten aldaketa** (7); **azken orduko aldaketa** (14); **baina aldaketa** (51); **baita aldaketa** (7); **bat aldaketa** (7); **bat bateko aldaketa** (13); **bateko aldaketa** (14); **batetik besterako aldaketa** (6); **beharreko aldaketa** (7); **belaunaldi aldaketa** (17); **benetako aldaketa** (12); **beste aldaketa** (36); **beste aldaketa bat** (11); **beste aldaketa batzuk** (6); **besterako aldaketa** (6); **bi aldaketa** (45); **bi aldaketa egin** (8); **bi aldaketa egingo** (12); **bigarren aldaketa** (12); **bost aldaketa** (15); **bost aldaketa egingo** (15); **botere aldaketa** (11); **da aldaketa** (83); **da aldaketa handirik** (7); **dago aldaketa** (19); **dela aldaketa** (8); **den aldaketa** (41); **dio aldaketa** (6); **dira aldaketa** (17); **diren aldaketa** (35); **ditu aldaketa** (9); **dituen aldaketa** (14); **du aldaketa** (48); **du aldaketa handirik** (8); **duen aldaketa** (33); **dugu aldaketa** (6); **dut aldaketa** (12); **dute aldaketa** (28); **duten aldaketa** (11); **duzu aldaketa** (7); **edo aldaketa** (9); **edozein aldaketa** (14); **egin beharreko aldaketa** (6); **egindako aldaketa** (16); **egitura aldaketa** (8); **eguraldi aldaketa** (9); **eguraldiaren aldaketa** (6); **entrenatzaile aldaketa** (10); **entrenatzaileak aldaketa** (7); **erabateko aldaketa** (28); **ere aldaketa** (37); **erregimen aldaketa** (10); **erritmo aldaketa** (26); **espainiako gobernu aldaketa** (6); **espainiako gobernuan aldaketa** (6); **espetxe aldaketa** (8); **estatus aldaketa** (6); **estatutu aldaketa** (13); **estatutuen aldaketa** (6); **estrategia aldaketa** (7); **eta aldaketa** (159); **eta aldaketa hori** (12); **eta aldaketa horiek** (13); **eta klima aldaketa** (7); **eta zenbait aldaketa** (6); **etxe aldaketa** (10); **euskal herrian aldaketa** (7); **ez da aldaketa** (19); **ez dago aldaketa** (6); **ez du aldaketa** (18); **ez dute aldaketa** (9); **ez zuen aldaketa** (8); **foru hobekuntzaren aldaketa** (6); **funtsezko aldaketa** (10); **gertatu den aldaketa** (6); **gertatu diren aldaketa** (7); **gertaturiko aldaketa** (6); **gertatutako aldaketa** (8); **gizartean aldaketa** (8); **gobernu aldaketa** (45); **gobernuan aldaketa** (9); **hainbat aldaketa** (72); **hainbat aldaketa egin** (20); **hainbeste aldaketa** (9); **halako aldaketa** (8); **hamaikakoan aldaketa** (8); **herrian aldaketa** (7); **hiru aldaketa** (29); **hiru aldaketa egingo** (18); **hobekuntzaren aldaketa** (6); **horrek aldaketa** (13); **horretan aldaketa** (7); **ikuspegi aldaketa** (6); **iritzi aldaketa** (15); **izan da aldaketa** (10); **izan zen aldaketa** (12); **izan zuen aldaketa** (7); **izandako aldaketa** (12); **izen aldaketa** (17); **jarrera aldaketa** (77); **jarrera aldaketa bat** (7); **joera aldaketa** (7); **klima aldaketa** (81); **klimaren aldaketa** (6); **kodearen aldaketa** (7); **konstituzioaren aldaketa** (7); **lau aldaketa** (7); **lege aldaketa** (26); **legearen aldaketa** (16); **leku aldaketa** (22); **nafarroan aldaketa** (11); **norabide aldaketa** (37); **ordu aldaketa** (10); **orduko aldaketa** (14); **oso aldaketa** (12); **paradigma aldaketa** (8); **plano aldaketa** (8); **politika aldaketa** (11); **politikan aldaketa** (6); **politikoaren aldaketa** (11); **rako aldaketa** (11); **sakoneko aldaketa** (8); **sei aldaketa** (8); **sei aldaketa egingo** (6); **sistema aldaketa** (7); **sistemaren aldaketa** (8); **talde aldaketa** (13); **tenperatura aldaketa** (9); **txanda aldaketa** (6); **ur aldaketa** (7); **zazpi aldaketa** (8); **zen aldaketa** (31); **zenbait aldaketa** (51); **zenbait aldaketa egin** (17); **zer aldaketa** (18); **zigor kodearen aldaketa** (7); **ziren aldaketa** (6); **zituen aldaketa** (6); **zuen aldaketa** (46); **zuten aldaketa** (9)

aldaketak aztertu (7); **aldaketak behar** (12); **aldaketak beharrezkoak** (8); **aldaketak beti** (7); **aldaketak dira** (6); **aldaketak direla** (8); **aldaketak egin** (92); **aldaketak egin behar** (16); **aldaketak egin beharko** (17); **aldaketak egingo** (38); **aldaketak egingo ditu** (18); **aldaketak egitea** (26); **aldaketak egiteko** (76); **aldaketak egiteko aukera** (8); **aldaketak egiten** (19); **aldaketak egitera** (8); **aldaketak egon** (25); **aldaketak ekarri** (11); **aldaketak ekarriko** (14); **aldaketak ekarriko ditu** (8); **aldaketak eragin** (14); **aldaketak ere** (26); **aldaketak eta** (46); **aldaketak ez** (58); **aldaketak ez dira** (15); **aldaketak ez du** (10); **aldaketak gertatu** (9); **aldaketak gertatzen** (13); **aldaketak iragarri** (7); **aldaketak izan** (42); **aldaketak izan dira** (10); **aldaketak izan ziren** (7); **aldaketak izango** (13); **aldaketak nahi** (7); **aldaketak zer** (6); **aldaketarekin batera** (8); **aldaketaren alde** (23); **aldaketaren aldeko** (6); **aldaketaren aurka** (20); **aldaketaren bat** (52); **aldaketaren beharra** (6); **aldaketaren berri** (9); **aldaketaren inguruan** (11); **aldaketaren inguruko** (18); **aldaketaren kontra** (9); **aldaketaren ondorioak** (6); **aldaketaren ondorioz** (10); **aldaketaren seinale** (6); **aldaketari aurre** (8); **aldaketari aurre egiteko** (7); **aldaketari buruz** (10); **aldaketari buruzko** (6); **aldaketarik aurreikusten** (7); **aldaketarik egin** (26); **aldaketarik egingo** (18); **aldaketarik egiteko** (6); **aldaketarik egon** (17); **aldaketarik egongo** (10); **aldaketarik ekarri** (10); **aldaketarik eragingo** (10); **aldaketarik espero** (12); **aldaketarik ez** (87); **aldaketarik ez badago** (6); **aldaketarik ez dela** (9); **aldaketarik ez duela** (6); **aldaketarik ezean** (10); **aldaketarik gabe** (43); **aldaketarik handiena** (8); **aldaketarik ikusten** (10); **aldaketarik izan** (59); **aldaketarik izango** (36); **ari diren aldaketak** (6); **azken orduko aldaketarik** (7); **baina aldaketak** (14); **beharreko aldaketak** (12); **da aldaketarik** (63); **da aldaketarik izan** (14); **da aldaketarik izango** (13); **dago aldaketarik** (22); **daitezkeen aldaketak** (8); **dela aldaketarik** (10); **den aldaketak** (6); **dira aldaketak** (24); **diren aldaketak** (36); **ditu aldaketak** (9); **dituen aldaketak** (38); **dituzte aldaketak** (10); **dituzten aldaketak** (7); **du aldaketarik** (31); **du aldaketarik egingo** (6); **duela aldaketarik** (10); **dute aldaketarik** (12); **egin beharreko aldaketak** (10); **egindako aldaketak** (20); **egiturazko aldaketak** (6); **entrenatzaile aldaketak** (12); **ere aldaketak** (28); **ere aldaketak izan** (6); **erritmo aldaketak** (8); **espainiako gobernu aldaketak** (7); **estatutu aldaketaren** (9); **eta aldaketak** (51); **eta aldaketaren** (9); **eta aldaketarik** (6); **ez da aldaketarik** (56); **ez dago aldaketarik** (22); **ez dela aldaketarik** (10); **ez du aldaketarik** (27); **ez duela aldaketarik** (10); **ez dute aldaketarik** (8); **ez zen aldaketarik** (19); **ez zuen aldaketarik** (7); **funtsezko aldaketarik** (12); **gertaturiko aldaketak** (8); **gertatutako aldaketak** (6); **gizarte aldaketaren** (11); **gobernu aldaketak** (24); **gobernu aldaketak ez** (8); **gobernu aldaketarekin** (7); **gobernu aldaketaren** (7); **hamaikakoan aldaketak** (7); **horrek aldaketak** (7); **ia aldaketarik** (7); **inolako aldaketarik** (29); **izandako aldaketak** (8); **izen aldaketak** (6); **jarrera aldaketak** (14); **jarrera aldaketarik** (11); **klima aldaketak** (23); **klima aldaketaren** (91); **klima aldaketaren aurka** (9); **klima aldaketaren inguruko** (13); **klima aldaketari** (12); **klima aldaketari aurre** (7); **lege aldaketak** (25); **lege aldaketaren** (7); **leku aldaketak** (9); **leku aldaketaren** (6); **moduko aldaketarik** (6); **nolako aldaketak** (9); **norabide aldaketarik** (7); **orduko aldaketarik** (7); **politikoaren aldaketaren** (6); **presio aldaketak** (6); **proposatutako aldaketak** (8); **sakoneko aldaketak** (7); **zen aldaketarik** (21); **zen aldaketarik izan** (13); **zer aldaketak** (7); **ziren aldaketak** (12); **zituen aldaketak** (6); **zuen aldaketarik** (8)

aldaketei aurre (8); **aldaketei buruz** (10); **aldaketek ez** (16); **aldaketen arabera** (6); **aldaketen artean** (14); **aldaketen aurrean** (9); **aldaketen berri** (11); **aldaketen inguruan**

(7); **aldaketen ondorioz** (6); **diren aldaketei** (6); **diren aldaketek** (10); **diren aldaketen** (11); **dituen aldaketen** (8); **egindako aldaketen** (6); **izandako aldaketen** (6); **ziren aldaketen** (6)

---

aldaketatxo *iz adkor* aldaketa txikia.

Eskubide osoa dun, jakina, **aldaketatxo** bat edo beste egiteko. Antton Olano

Herri bakoitzean hartzen zituzten joko hauek bariaketa eta **aldaketatxoak**, bertako esaldi zaharren arabera. Pello Zabala

Gertatu zen pieza txikiren bat galtzen duten espaziontzi horiekin bezala, hasieran ez genuela ia ezer antzeman, soilik **aldaketatxoren** bat eguneroko bizitzan, baina handik gutxira, konturatzerako, orbitaz kanpo ikusi genuela geure burua. Bernardo Atxaga

Eskola bukatzerako, Hermione Grangerrek bakarrik lortu zuen poxpoluan **aldaketatxoren** bat; McGonagall andereñoak gelakoei erakutsi zien zilar-koloreko eta puntazorrotz bihurturiko poxpolua eta Hermioneri irribarre egin zion. Iñaki Mendiguren

---

aldaki **1** *iz* kopia.

Gaur gauean Wewelsburgeko gaztelura sartu, benetako Lantza hartu eta haren ordez **aldaki** hau utziko dugu. Alberto Ladron Arana

Bederatzi egun behar izan zituen lan horretarako; hamargarrenean, Juan de Panoniaren errefusapenaren **aldaki** bat igorri zioten. Juan Garzia

Hau ez da elkarrekiko oztopoaren metodoaren **aldaki** bat besterik. Xabier Kintana

-Longinos Lantzaren **aldakia** da -azaldu zidan aitak-, xehetasunik ñimiñoeneraino ere berdina. Alberto Ladron Arana

Mamiari ere antzeman zitzaion: analisi konbinatoriozko adigaiak, eta haien lagungarri, mugarik gabeko errepikapenezko **aldakiak** adibide. Juan Garzia

Ikerkuntza-subjektu horren behinekotasuna, gizarte zenbaiten balio eta bizi-sistemetan daukan kokapen estrategikoa, alor horrek kolpe batez **aldaki** guztiak harrapatzeko duen aukera, modu xumean baina sendo, aldarrikatu izan dute elikaduraren historialariek. Espainian teilapea, lan-kon-tratua, ordenamendu nazionalaren onarpena, "integrazioa", galdatzen dio, h[au] d[a], nolabait partzuergo etnikoa, tribukoa izatea, haiek denak ez baitira nazioaren definizio tradizionaleko hizkuntza, lurralde, historia, tradizio komuntasun klasikoen **aldaki** modernoak baino. Edorta Agirre

Berak begirada bakar batean memorizatzen zituen aurpegi haiek guztiak eta haien **aldaki** posible oro: ilea moztuta, kolorez aldatuta, bizarrarekin, mustaxarekin, betaurrekoekin edo gabe. Harkaitz Cano

Ingeleseko gure irakasleak atzerrira ihes egin aurretik esandakoaren arabera, *un-concho*, *unconscieus*-en ahoskeraren **aldaki** umoretsu bat zen inondik ere. Harkaitz Cano

2 aldaera.

Elikagai berriek oraingo gaixotasunen areagotzeaz gainera berririk ere ekarri eta jeneralizatuko dute, hala nola salmonelosia, listeria, behien entzefalopatia espongiformea (Creutzfeldt-Jakoben gaitzaren **aldaki** berria), Clostridium prefringes bakterioak, Staphylococcus aureusek, Mykobacteriumek eta bestek eragiten dituztenak. *Konfesoreen Eskuliburua,* 70 urtez 81 argitalpen izan zituena eta 92, **aldaki**, berrikusketa edo laburpenekin. Edorta Agirre

Ez zuen ironiaz kamerari irribarre egiteak suposatuko zukeen istorioaren **aldakia** kontuan hartu. Harkaitz Cano

Zati guztien gainetik, bigarren Choralaren **aldaki** eta garapenak aipatu beharko genituzke eta amaierako Allegro Vivace disdiratsua. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aldaki bat (5)

---

aldakoi *adlag* aldakortasunez.

Gauza iragankorren maitasunean **aldakoi** portatzen bada, izaki eternalarenean sendotuko da; gauza iragankorretan ahultzen bada, izaki iraunkorraren maitasunean egonkortuko da, eta irmo jokatuko du; eta gauza iheskorretan lotuta, ez izatearen ikaraz irmo iraun ezinean irrikatzen zuen izate hura bera lortuko du. Imanol Unzurrunzaga

---

aldakor **1** *izond* aldatzeko joera duena.

Presioa, berez, **aldakorra** da; beti ari da aldatzen. Amodioa ere **aldakorra** da: ez baitira txori berak gauero etortzen, ezta zuhaitz beretara ere. Pello Zabala

Denbora galduaren bila-n amodioaren egia jelosia da: maitariak maitearen mundu **aldakorrak** kontrolatu nahi ditu, erabat bereganatu. Markos Zapiain

Mundu erreal horren bi eskualdeak, higiduren erregulartasun aldagaitzen eremua (zeruko esparrua) eta gure mundua, kontingentea, **aldakorra** eta galgarria (zerupeko esparrua) bereizi zituen Aristotelesek. Askoren artean

Zelula "iraunkorrek" hartzaile-eremu txikiagoa dute, fobean daude batez ere, eta irudia zehatza denean lan egiten dute; zelula "iragankorrek" berriz, eremu aski zabala dute, estimulu **aldakorrei** erantzuten diete. Josu Zabaleta

Jatorria lehen zergatian duen kate eternoaren mailak une oroz nahastu eta bereiztu beharko balira bezala, gizonen gorabehera **aldakorren** erruz. Juan Martin Elexpuru

Beldurra berriz, zalantzazko gauza baten iruditik ere sorturiko Tristura **aldakor** bat da. Piarres Xarriton

Ez litzateke on **aldakorrik** existituko, on aldaezinik ez balego. Imanol Unzurrunzaga

Sorkari **aldakorra** ari zaigunean ere Egia iraunkorrera garamatza, han ikasten baitugu benetan, aurrez aurre egonean entzuten diogularik. Imanol Unzurrunzaga

Izaera **aldakorrekoa** zarela aurkitzen baduzu, zeure buruaz haratago heda zaitez, baina zeure izatearen gailurrak gainditzerakoan ez ahaztu arima arrazoiduna baino gorago zabiltzala. Imanol Unzurrunzaga

Gauza galkor eta **aldakorrak**. Imanol Unzurrunzaga

Nahimen librea ongi aldaezinetik aldendu eta ondasun **aldakorretara** bihurtzean datza gaitza. Imanol Unzurrunzaga

Burtsek bost urte daramatzate gora eta gora etengabe, eta, ustekabeko zorigaitza izan ezean, 2000. urteak ere berri onak emango dizkie errenta **aldakorreko** merkatuei. Iñaki Heras

Xehetasun **aldakorregi** eta eztabaidagarriegiak ere ez doazkio legegileari, jurisprudentziari baino. Andres Urrutia

2 *errenta aldakor*

Oro har, "zenbateko on horiek» **errenta aldakorrak** eta banakako sistemetan eginiko ekarpenak indartu dituzte. Berria - Ekonomia

Atzo, munduko **errenta aldakorreko** merkatuekin bat, gureak ere behera egin zuen. Berria - Ekonomia

Irakeko gerra geroztik ez ziren horrelako galerarik ikusi **errenta aldakorrean**. Berria - Harian

Burtsek bost urte daramatzate gora eta gora etengabe, eta, ustekabeko zorigaitza izan ezean, 2000. urteak ere berri onak emango dizkie **errenta aldakorreko** merkatuei. Iñaki Heras

3 *geometria aldakor*

Geometria aldakorreko harremana duk hori legearekiko -esan zuen Ruche jaunak barre-algaraz. Jon Muñoz

4 *izar aldakor* *(corpusean ez dago; ETCn **215** agerraldi)*

Izar aldakorrei "RR Lyrae" edo "TT Arietis" izena ematen zaie; "Lyrae" eta "Arietis" konstelazio horietan daudela esan nahi du, eta hasierako hizki bikoiztuak aurkitzen diren eran sailkatzeko balio du; "AA" konstelazio batean aurkitutako lehen **izar aldakorra** da. ETC-entziklopedia

Izar aldakor irregular bat, bere distira aldaketek, tarte detektagarririk ez duten **izar aldakor** mota bat da. ETC-entziklopedia

Izar aldakor kataklismiko bat, bere distiran bat-bateko aldaketa ikusgarriak dituen **izar aldakor** mota bat da. ETC-entziklopedia

Izar aldakor oszilatzaileak **izar aldakor** mota bat da, bere argitasuna, azaleko tenperatura eta espektroa izarraren kanpo geruzen aldikako uzkurdura eta hedadura baten

ondorioz aldatzen dituena. ETC-entziklopedia

Baina **izar aldakorren** kasuan, zenbait arrazoiren arabera, argitasuna nabarmen alda daiteke denboran: ETC-zientzia, zuzenbidea

Garai bertsuan, Edwin Hubble amerikar astronomoak zeru behaketa nekagaitzez ekin zion bere ikerlan zabalari, zefeida **izar aldakorrak** aztertuz. ETC-literatura, saiakera

1956an, astronomoak ohartu ziren uste baino aldakorragoak zirela zefeida motako **izar aldakorrak** ; izan ere, bi mota zeuden, eta ez bat. ETC-literatura, saiakera

E.P Hubble doktoreak, Mount Wilson behatokian, **izar aldakor** Zefeidak deskubritu zituen espiral-itxurako bi edo hiru nebulosa hurbilenekotan, eta horrela lehen aldiz lortu zuen haien distantziak neurtzea. ETC-literatura, saiakera

Sufrikario haren erdian, "12 gizon jakintsuk" baizik ulertzen ez zuten espazio desitxuratuaz, argi-izpi kurbatuez eta **izar aldakorrez** hitz egiteak piztu egin zuen jendearen irudimena. ETC-literatura, saiakera

5 *izar aldakor irregular* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Izar aldakor irregular bat, bere distira aldaketek, tarte detektagarririk ez duten izar aldakor mota bat da. ETC-entziklopedia

6 *izar aldakor kataklismiko* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Izar aldakor kataklismiko bat, bere distiran bat-bateko aldaketa ikusgarriak dituen izar aldakor mota bat da; badaude, baita ere, aldaketa txikiak baina oso azkarrak jasaten dituzten izar aldagarriak ere. ETC-entziklopedia

7 *izar aldakor oszilatzaile* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

ZZ Ceti **izar aldakor oszilatzaile** bat da, DAV4 espektro motakoa, bere izena, ZZ Ceti izar aldakorrak, daramaten izar aldagarrien eredua. ETC-entziklopedia

8 *izar aldakor pultsatzaile* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Mira izar aldakorrak gorri bizi kolorea, 100 urte baino gehiagoko pultsaketa oszilazio periodo periodoa eta irudizko magnitude bat baino gehiagoko zabaltasuna duten **izar aldakor pultsatzaileak** dira. ETC-entziklopedia

9 *izar aldakor urdin argitsu* *(corpusean ez dago; ETCn 22 agerraldi)*

Izar aldakor urdin argitsuak , S doradus izar aldakor bezala ere ezagunak, ezagutzen diren izarrik argitsuenak dira, zeinen artean dauden unibertsoko izarrik masiboenetako batzuk. ETC-entziklopedia

Eta Carinae **izar aldakor urdin argitsu** hipermasibo bat da, Carina konstelazioan dagoena. ETC-entziklopedia

Izar aldakor urdin argitsuak edo Wolf Rayet izarrak hipererraldoi bezala sailkatuta dauden masibo handi eta distiratsuenak dira. ETC-entziklopedia

10 *jai aldakor* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Erreferentziazko lehen lerro hori abiapuntutzat hartuta, Pazkoaldiko lehen ilargi betea ezartzen da urteko **jai aldakorrak** zehazten dituen data gisa eta, are, Eliza katolikoak ospatzen dituen lau pazkoak haren arabera finkatuko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 *kapital aldakorreko inbertsio sozietate* *(corpusean ez dago; ETCn 21 agerraldi)*

Kapital aldakorreko inbertsio sozietatea (SICAV) dirudunek erabilitako tresna bat da, dagozkienak baino zerga gutxiago ordaintzeko. ETC-entziklopedia

Diputatu horrek etxe bat du Nafarroan, eta 259.921 euro SICAV **Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietate** baten akzioetan. ETC-prentsa

Egun, aberatsenen ondasunak **Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateetan** (KAIS) babestuta daude eta sozietate horiek beste herrialde batzuetara ihes egin dezakete, EAEn gertatu bezala. ETC-prentsa

Salagarritzat jo du Amaiurrek "linbo fiskalean" diren erakundeen aurkako neurririk ez hartzea: Sicav **kapital aldakorreko inbertsio sozietateek** %1 eskaseko zerga tasarekin jarraituko dute, adibidez. ETC-prentsa

Open Europe deituriko Erresuma Batuko think thank batek argitaratutako informazio batzuen arabera, ia 500 europarlamentari eta parlamentari izandakok **Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietate** (Sicav) batek kudeatutako pentsio funts pribatu batean parte hartu zuten 1994tik 2009ra. ETC-prentsa

Nafarroan zortzi Sicav daude (hots, **kapital aldakorreko inbertsio sozietate**) eta orain, bertako kotizazioa beste edozein sozietatekoarekin berdindu behar dutenez, dirutzarra Euskal Herritik kanpora daramate eta ez dakit nora. ETC-prentsa

"Tobin" tasa edo antzeko zergak ekarriko lituzke erreforma horrek eta Sicav **kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen** egoera fiskala ere aldatuko luke. ETC-prentsa

12 *kostu aldakor*

Lanaren ikuspuntu mekanizista eta ekonomizista du oinarri eredu honek: lana, materialen kostuen antzera, beste **kostu aldakor** bat da. Iñaki Heras

13 *mira izar aldakor* *(corpusean ez dago; ETCn 14 agerraldi)*

Mira izar aldakorrak gorri bizi kolorea, 100 urte baino gehiagoko pultsaketa oszilazio periodoa eta irudizko magnitude bat baino gehiagoko zabaltasuna duten izar aldakor pultsatzaileak dira. ETC-entziklopedia

Mira izar aldakorren distira mileneko bateraino ahul daiteke. ETC-prentsa

14 *sugandila aldakor* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Sugandila aldakorra edo "Lacerta agilis" "Lacerta" generoko animalia da. Narrastien barruko Lacertidae familian sailkatuta dago. Europan oso ugariak dira. ETC-entziklopedia

15 *zefeida izar aldakor* *(corpusean ez dago; ETCn 23 agerraldi)*

Zefeida izar aldakor bat erradialki pultsatzen duen izar mota bat da, tenperatura zein diametroa aldatuz dizdira aldaketak periodo eta zabaltasun egonkor eta erregularrekin eragiteko. ETC-entziklopedia

Izar hauek ez dira **Zefeida izar aldakorrekin** nahastu behar, hauek Delta Cephei izarragatik deituak baitira. ETC-entziklopedia

Garai bertsuan, Edwin Hubble amerikar astronomoak zeru behaketa nekagaitzez ekin zion bere ikerlan zabalari, **zefeida izar aldakorrak** aztertuz. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldakor bat (6); **aldakor den** (3); **aldakor eta** (14); **aldakor ez** (3); **aldakor honetan** (3); **aldakorra baino** (4); **aldakorra da** (28); **aldakorra da eta** (4); **aldakorra dela** (10); **aldakorra den** (4); **aldakorra eta** (9); **aldakorra izan** (4); **aldakorra izan da** (3); **aldakorra zen** (3); **aldakorrak dira** (12); **aldakorrak direla** (3); **aldakorrak diren** (6); **aldakorrak eta** (8); **aldakorrak izan** (3); **aldakorreko hipoteka** (4); **da aldakorra** (3); **eguraldi aldakorra** (3); **ere aldakorra** (4); **ere aldakorra da** (3); **errenta aldakorra** (3); **errenta aldakorrak** (4); **errenta aldakorrean** (6); **errenta aldakorreko** (8); **eta aldakor** (10); **eta aldakorra** (14); **eta aldakorrak** (6); **gauzak aldakorrak** (3); **hori aldakorra** (3); **interes aldakorreko** (4); **joera aldakorra** (3); **oso aldakorra** (10); **oso aldakorra da** (4); **oso aldakorrak** (4); **tasa aldakorrak** (3)

---

aldakorki *iz* aldagaia.

Agerpeneko **aldakorkiaren** izatearen menpekotasunaren osotasun absolutua. Ibon Uribarri

---

aldakortasun 1 *iz* aldakorra denaren nolakotasuna.

Krisi horren ondorioz, bertan behera utzi ziren truke-tasa finkoak, eta trukeen **aldakortasuna** nagusitu zen. Iñaki Heras

Garai berri hauen ezaugarri nagusia **aldakortasuna** da. Jon Alonso

Onartzen dute ere bigarrenekorik Jainkoaren erabaki guztiak betieretik hartuak dituela Jainkoak berak, zeren eta bestela izaten balitz, Jainkoaren gain eman genezake zerbait hutsune eta zerbait **aldakortasun** . Piarres Xarriton

Aldakortasunak sortzen duen ziurgabetasuna erabat saihesten da. Iñaki Heras

Epe luzera, truke-tasa nominalen **aldakortasunak** truke-tasa errealaren egonkortasuna, baita erlatiboa ere, bideratzen du. Koro Navarro

Segidan, taigabeko **aldakortasunaren** sentsazioak darabila: aldiz kaosa, aldiz ordena, energia eta materia, eme-ar, su-berina. Jose Angel Irigaray

Hortaz, batera hitz egin dezakegu, hein batean behintzat, ikurraren **aldakortasunari** eta aldaezintasunari buruz. Isabel Arrigain

Burtsaren **aldakortasunak** tentazioa piztu dezake, baina errenta aldakorra ez da jolasa. Berria - Ekonomia

Sorkarien **aldakortasunaren** zergatiak. Imanol Unzurrunzaga

Produktuen ekoizpen homogeneoa eta estandarizatua, inolako malgutasunik eta **aldakortasunik** gabea. Iñaki Heras

Jendeen ahotsa dute salbuespen horiek berme, eta ahots horrek, soilik gizonentzat, bereizi du desleialtasuna **aldakortasunetik** : gizonek abantailetan hartzen dutelarik bereizkuntza hori, umiliagarria gerta behar lekiekeelarik; **Aldakortasun** edo fluktuazio horri begiratzen dio klima hitzak. Jon Muñoz

2 (izenondoekin)

Horregatik jazo ohi dira gorabehera bortitzak, eta horregatik gaur egungo finantza merkatuen ezaugarri nagusia da bolatilidadea edo **aldakortasun** handia. Iñaki Heras

Azken orduan **aldakortasun** bizia eragin zuen horrek: gora lehenengo eta behera ondoren. Berria - Ekonomia

Goi mailako burgesia, zure ustez, ez da gauza instituzio burges demokratikoak eraikitzeko, zeren trantsizio batean kontraesan gehiegi meta daitezke, eta, ondorioz, **aldakortasun** sozial handia sortzeaz gain, iraultzak ere indarra har dezake. Rafa Egiguren

Are: **aldakortasun** atzemangaitz hori izango naiz. Juan Garzia

Bilakabide fonologikoak zailtasun fisikoei aurre egiten dieten ordezkatzeak direla gogoan hartuta, ongi uler daiteke hizketaren **aldakortasun** FONOESTILISTIKOA. Lourdes Oñederra

Aldakortasuna egonkor bihurtzea, behin behinekoa beti errepikatzea, obrarik osatu beharrean borradoreak pilatzea, oraina bizi ordez geroenerako uztea aberrazioa da. Joseba Sarrionandia

3 (hitz elkartuetan)

Gogora dezakegun bezala, eginkizun handi hori abiapuntu berri batekin hasi zen: giza izaeraren irudimen-, ausardia- eta **aldakortasun** -ahalmenak giza historian etapa garrantzitsu hartan gizadiak lortu ahal izan zuen orientabide-aldaketari zegozkion zailtasunen parekoak gertatu ziren. Iñaki Mendiguren

Berak oso ongi ezagutzen zituen frankoen oldar kontrolaezina, buru-**aldakortasuna** eta sugestionagarritasuna eta Mendebaldeko barbaroen (Keltoi) aspaldiko beste ezaugarri -primario eta sekundario- batzuk. Iñaki Mendiguren

· Giza ezintasun eta **aldakortasunaren** kausa ez diote naturaren ahalmen komunari egozten, baizik eta giza izaeraren nik ez dakit zein akatsi, eta horregatik deitoratu egiten dute giza izaera. Piarres Xarriton

4 ***aldakortasun emozional*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Nortasun histrionikoaren nahastea duenak eta mugako nortasunaren nahastea duenak arreta bilatzen dute, portaera manipulatzailea dute eta **aldakortasun emozionala** agertzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haurrengan **aldakortasun emozional** moduan agertzen da mania eskuarki; aldarte haserrekor eta leherkorra, eta funtzionamendu psikosozial oso txiroa agertzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lekuko gisa hitz egin zuen psikiatra baten arabera, Morentinek '**aldakortasun emozionaleko** nahasmendua du". ETC-prentsa

5 ***aldakortasun-koefiziente*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Estatistikan, sakabanatze neurri erlatiboa da **aldakortasun-koefizientea** . ETC-entziklopedia

Hala ere, datu multzo desberdinen sakabanatze-mailak alderatzeko erabili behar denean, dagokion sakabanatze neurri erlatiboa hobesten da, **aldakortasun koefizientea** hain zuzen, desbideratze estandarra zati batezbestekoa eginez kalkulatzen dena. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta aldakortasuna (3)

---

aldakuntz ik **aldakuntza**.

---

aldakuntza *(orobat **aldakuntz**)* **1** *iz* aldatzea, aldaketa.

Agerpenen edozein **aldakuntza** (segida) aldaketa bat besterik ez da. Ibon Uribarri

Agerpenetan bilatu beharko dugu, eta bertan hauteman daiteke edozein **aldakuntza** edo aldiberekotasun agerpenek atzematean beraiekin duten hartuemanari esker. Ibon Uribarri

Puntu batetik plano batera egindako proiekzio bat balitz bezala deskriba daiteke geometrikoki **aldakuntza** hau: perspektiba zentrala edo perspektiba lineala deitu ohi dena bezala, alegia. Josu Zabaleta

Gogora dezagun, Sabino Aranaren **aldakuntzak** zirela eta, anabasa handia zegoela apostrofoa eta marratxoa erabiltzeko orduan. Koldo Zuazo

Pantailaren luminantzian berebiziko eragina izango dute, aldiz, argi-iturriaren **aldakuntzek** ; proiektorea lekuz aldatzeak, adibidez, zineman. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aldakuntza nabarmena izan zen Hego Euskal Herrian aurreko arotik hona. Koldo Zuazo

XIX. mendearen erdialdetik aurrera **aldakuntza** nabarmena gertatu zen Bizkaiko euskararen bilakaeran: besteengandik bereizteko eta urruntzeko urrats zehatzak egin ziren. Koldo Zuazo

Erretinako irudian ehundura-gradiente bat izatea distantziaren **aldakuntza** jarraitu bat pertzibitzeko estimulua da. Josu Zabaleta

Euskara batua plazaratu berritan, eta eztabaidak hain gordinak eta garratzak ziren garaian, **aldakuntza** esanguratsua gertatu zen Euskaltzaindi barruan: Luis Villasante aukeratu zuten euskaltzainburu 1970ean. Koldo Zuazo

Sortzen diren **aldakuntza** fonetikoak islatzea (baitu, baikara, bainaiz, baihaiz, bailuke, baitzuen). Koldo Zuazo

Luminantziaren bat-bateko **aldakuntza** bortitz bat pairatu behar duenean, begia "itsu" geratzen da aldi batez. Josu Zabaleta

Erretinako proiekzioak begi-ixte zinetiko batekin lotu ohi den perspektibazko **aldakuntza** bat duenean pertzibitzen da mugimendu hori. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Euskalki guztien artetik eredu jakin bat aukeratzea, eta eredu hori zehatz arautzea eskatu zuen **aldakuntza** giroak, eta 1968an plazaratutako euskara batua izan zen ahaleginaren ondorioa. Koldo Zuazo

Ikuspen-eremuaren aldaketa etengabeak halako fluxu gisako bat eragiten digu erretinan, **aldakuntza** -gradiente jarraitu bat. Josu Zabaleta

Beti ortografia bera erabiltzeko esaten zien bere lankide euskaldunei eta, gero ikusiko dugunez, berak zabaldu zituen Ipar Euskal Herriko ortografia **aldakuntzak** Hegoaldean. Koldo Zuazo

Euskalkien arteko aldeak, berriz, hitzak laburtzetik eta hots **aldakuntza** bereziak egitetik zetozela zioen. Koldo Zuazo

4 ***errepikatuzko aldakuntza*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Horren ondorioz, zenbait aldakuntza lortzen dira, **errepikatuzko aldakuntzak** deituko ditugunak, talde bera bi elementu berdinez osa baitaiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aukeraketan elementuak ezin badira errepikatu, aldakuntza arruntak sortzen dira; aukeratutako elementuak errepikatzen ahal badira, errepikapenezko aldakuntzak edo **errepikatuzko aldakuntzak** izango dira. ETC-entziklopedia

Aukerako 6 koloreko bertsioan, 4 koloreko kode baterako, 64=1296 aukera ezberdin daude kodea osatzeko, aukerako kode bakoitza **errepikatuzko aldakuntza** bat izanik. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldakuntza bat (4); **aldakuntza fonetikoak** (3); **aldakuntza horiek** (3); **aldakuntza orotan** (3); **aldakuntzarik ez** (4); **beste aldakuntza** (3); **diren aldakuntza** (3); **edozein aldakuntza** (4); **edozein aldakuntzaren** (3); **ere aldakuntza** (4); **eta aldakuntza** (4); **zen aldakuntza** (4); **zenbait aldakuntza** (3)

aldaleku **1** *iz* aldatzeko lekua, eskuarki kirolariena. ik **aldagela**.

-Besterik ez bada etxean jarriko dut, zuretzat -esan zuen, emakumeek batzuetan amultsu eta maitekor agertzeko duten gaitasun ukaezina erabiliz, eta bere takoidun zapaten gainean pauso labur eta baldresak emanez sartu zen **aldalekura**, erosteko begiz jota zituen arropen piloan soineko beltza utzi eta beste bat probatzera. Joxean Agirre

Jendetza bulkaka hasi zenean (eta ez kakatza jendea bulkatzen), bidaiari igo berri batek (eta ez bideberri igokari batek) lekualdarazi zuen lehengoa (eta ez lehengorarazi **aldalekua**). Xabier Olarra

Lafaiali'ik konortea galdu zuen **aldalekuetan** eta erietxera eraman zuten. Berria - Kirola

Lagisquet entrenatzailea oso haserre jaitsi zen **aldalekuetara**. Berria - Kirola

Batheko jokalariak 14:15ean heldu ziren eta Miarritzekoak 14:35ean; alde banatatik sartu ziren **aldalekuetara**. Berria - Kirola

Agenera heldu aitzin Tolosan aritu zen, eta Agenera heltzean hasi ziren taldea berregituratzen, harmailak eta **aldaleku** berriak eginda. Berria - Kirola

2 ***haurren aldaleku*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Haurren aldalekua haurrei pixoihala aldatzeko diseinaturiko plataforma txiki eta garai bat da. ETC-entziklopedia

---

aldamen *(orobat **aldemen** g.er.)* **1** *iz* alboa, zerbaiten edo norbaiten eskuineko edo ezkerreko aldea.

Kanpin-gasezko argi bat paratu dute zirkuluaren erdian, eta beste bat **aldamen** batean goian, zuhaitz-adar batetik zintzilik. Xabier Mendiguren Elizegi

Bai, beterik zeuden jatetxearen aurre-aurrean aparkatzeko zeuden leku guztiak, eta horrek esan nahi zuen gure autoa **aldamen** batean utzi genuela. Oskar Arana

Ostikada on bat ematen dio mutilari, gogor, eta **aldamen** batera itzulikarazten du. Oskar Arana

Beste bik Gernikara zeramaten: batean, Ocho de Enero kalea eta San Juan elizaren **aldamena**; bestean, Union ibilbideko tiloak Adolfo de Urioste birrinduaren ondoan. Lutxo Egia

Ubanbe ikusten nuen Virginiaren gainean, eta Pantxo nire **aldamenean** lerdea zeriola. Bernardo Atxaga

Bakartia nintzen eta ez nuen norbait ohean ene **aldamenean** jasaten ahal larru joaldiak eskatzen zuen epearen luzeran baino. Itxaro Borda

-Hemen da -entzun nuen **aldamenean**, neure gogoetak etenez. Xabier Mendiguren Elizegi

Aurretik igarotzen ari den auto hori berea da, bera da gidari, eta emaztea du **aldamenean**. Imanol Zurutuza

Gaur, autobusean ginela, plataforman, mukizu bat nuen **aldamenean**, maiz aurkitzen ez diren horietakoa. Xabier Olarra

Zein kutxa polita daukazun, jauna -esan zion, **aldamenean** eseririk-. Jose Morales

Kantoiko dendatxoan, edo, zehatzago esanik, dendatxoko leihoan, sbiten-saltzailea jarri ohi zen, kobre gorrizko samovarra **aldamenean** zeukala. Jose Morales

Bere **aldemeneko** gizonak botinak eta eskularru horiak zituen. "Denda bateko sail-arduradunen bat, seguru asko". Lopez de Arana

Inork ez dit era txarrean esan, baina, umea marruka ari zenean, asko akordatzen nintzen goian, behean eta **aldamenetan** bizi ziren guztiekin. Arantxa Iturbe

Alazne bankuaren erdian eseri zen, eta Mirari eta Irene haren **aldamenetan**. Fernando Morillo

Ticesko Ama Birjinaren iruditxo bat zuen, txerpolari bati Ohanesko festetan erosi ziona eta etxeko egongelan jarri zuena, kandelatxo pare bat **aldamenetan**, etxea behar bezala zain zezan. Joan Mari Irigoien

Zapore gaziek mihi puntaren **aldamenetako** dastamen-papilak aktibatzen dituzte, eta zapore garratzak, berriz, mihiaren alde banatan dastatzen dira, gazia dastatzen den guneen atzean. Irene Aldasoro

Argitxo bat besterik ez eta nazia **aldamenera** etorri zitzaidan, izterrean zaplada bat eman eta galdetu zidan: ikusi duk, Txofanni? Fernando Rey

Ohearen **aldamenera** hupatu zen. Itxaro Borda

Dolorez plegaturiko Nakoren **aldemenera** punpan hurbildu zen Graxik izeba zela uste zuen emazte bat. Itxaro Borda

Beldurrik gabe, zozo bat tabernariaren feltrozko zapata handien **aldameneraino** inguratu zen xaltoka. Matías Múgica

Joxemarik, Axpek ere **aldamenetik**, koadroari halako arretaz begiratu eta, lehenak: [...]. Pablo Sastre

Etxearen **aldamenetik** ahotsak zetozen, Buglar, Howard eta nexka katakumearenak. Anton Garikano

Pope batek kapelua erantzi zuen haren **aldamenetik** igarotzean, eta alkandora zikinez jantziriko mutiko batzuek eskua luzatu zioten, esaka: "Jauna, limosnatxo bat umezurtz honentzat!". Jose Morales

Ezin, baina, **aldamenetik** uxatu. Joxe Austin Arrieta

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bururik gabeko gorpua prozesio batean bezala eraman zuten San Pietro in Montoriora, non Estigma Sakratuen fraideek abside **aldameneko** kapera batean hobiratu zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Burua itzuli ere egin zuen nire aldera behin, bere ohe-**aldamenean** zutik nengoela. Joxe Austin Arrieta

3 ***aldameneko*** *izlag* aldamenean dagoena; aldamenean bizi dena. ik **aldameneko**.

-Lo egin ezinik al hago? -galdetu zion gau batean Albertok, **aldameneko** literan etzaten zen adiskideak. Bernardo Atxaga

Aldameneko laborategiko lankide batek aipatu zizkion ozpineko euliaren abantailak. Juan Garzia

Irudi bat ikusi nuen, malkoek erdi lurrundurik: **aldameneko** bankuan, emakume bat, haur-kotxetxo bati eragiten. Eginak nituen itzuli batzuk, eta **aldameneko** zurubian entzun zen urrats arin batek hartu zuen halako batean nire arreta. Anjel Lertxundi

Lokalarekin batera aspaldi erosi behar izan zuten **aldameneko** etxean jar zitezkeen bizitzen, bi gela, sukaldea, sotoa. Joseba Urteaga

Niko tirafondoa sartzeko makurtu, istant hartan ama-alabak atera ziren **aldameneko** etxetik. Pablo Sastre

Haurra negarrez ari zen **aldameneko** gelan, nik goragalea nuen. Joseba Urteaga

Beti egoten da **aldameneko** gelara ematen duen ate bat. Jose Morales

-Iskanbila ederra izan dugu **aldameneko** logelan -kontatu zion-. Imanol Zurutuza

Nolabait, esan liteke azenturik gabeko SILABAK, beregaintasun prosodikorik ezean, **aldameneko** silaba azentudunari itsasten zaizkiola. Lourdes Oñederra

Harritu egin nau, edonola, herrialde honetan ere sumatu dudan epeltasunak **aldameneko** gatazkari dagokionez. Jon Arretxe

Operako palko batean gizonezko lagun batekin eserita nengoen, eta zu **aldamenekoan**. Eduardo Matauko

· Zuhurtziaren izenean, utzi egin zion esnea **aldameneko** nekazariari erosteari, nekazariaren behiek autobide bazterrean egiten baitzuten orain hausnarrean, eta han belarrak, edonork dakien bezala, berun ugari izaten baitu. Eskarne Mujika

Aldameneko bizilaguna, gizon elbarri bat, mutiko ondo hezi eta goibel hura beti oso maitea izan baitzuen, poz-pozik jarri zen hura berriro ikustean. Eskarne Mujika

Aldameneko Joxepa da: [...]. Joan Mari Irigoien

Jangelara itzuli nintzenean, **aldameneko** bi gizonak hizketan ari ziren bizi-bizi, arreta mahai gainean zabalduta zeukaten eraikin-plano batean jarrita. Anjel Lertxundi

· Düsseldorfekoa omen zen, nire **aldameneko** hori, eta ez hain gaztea ere: hogeita hamarretik gorakoa bai behintzat, ni baino gazteagoa dena den. Joxe Austin Arrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aldamenean beste (7); **aldamenean bizi** (6); **aldamenean dago** (4); **aldamenean dagoen** (8); **aldamenean eduki** (5); **aldamenean eseri** (19); **aldamenean eseri zen** (4); **aldamenean eseri zitzaion** (5); **aldamenean eserita** (10); **aldamenean eta** (9); **aldamenean izan** (6); **aldamenean jarri** (15); **aldamenean neukan** (5); **aldamenean zegoen** (11); **aldamenean zeukan** (11); **aldamenean zuela** (10); **aldamenean zuen** (6); **aldameneko gelako** (8); **aldameneko gelan** (23); **aldameneko gelara** (16); **aldameneko gelatik** (10); **aldameneko gizon** (4); **aldameneko gizonak** (4); **aldameneko gizonari** (4); **aldameneko ohean** (4); **aldamenetik igaro** (4); **aldamenetik igarotzean** (6); **aldamenetik igarotzen** (4); **baina aldameneko** (5); **bat aldamenean** (8); **bata bestearen aldamenean** (4); **baten aldamenean** (24); **beraren aldamenean** (7); **bere aldamenean** (18); **bere aldameneko** (7); **bestearen aldamenean** (4); **da aldameneko** (5); **dio aldameneko** (4); **du aldamenean** (4); **elkarren aldamenean** (15); **eta aldamenean** (30); **eta aldameneko** (23); **eta aldamenetik** (5); **eta bere aldamenean** (4); **eta haren aldamenean** (7); **gure aldamenean** (5); **haien aldamenean** (7); **haren aldamenean** (28); **haren aldamenetik** (5); **honen aldamenean** (5); **horien aldamenean** (5); **nire aldamenean** (18); **nire aldameneko** (10); **nuen aldamenean** (5); **zen aldameneko** (8); **zeukan aldamenean** (5); **zuen aldamenean** (7); **zuen aldameneko** (5); **zure aldamenean** (4) aldameneko etxean (4)

aldameneka ik **aldamenka**.

---

aldameneko *iz* aldamenean bizi den pertsona. ik **aldamen 3**.

Hamaiketakoa egin genuen bidean, oroitzen naiz txakurkumeak jaten ari zirela gure **aldamenekoak** sagardotegian, hala esan zuten. Koldo Izagirre

Aldamenekoek antzeko aparatu bat zuten, eta gaueko hamaikak aldera pizten zuten, gurasoak oheratzen zirenean hain zuzen. Iban Zaldua

Behin mahai-inguru batera joan nintzen eta **aldamenekoek**, gizonezkoek, ez zuten uste ezer funtsezkorik esan nezakeenik haurdun nengoelako. Ana Urkiza

Aldamenekoren batekin. Imanol Zurutuza

Bat-batean, **aldamenekoari** kargu hartu zion; bere ustez, nahita zapaltzen baitzizkion oinak, bidaiariak igo edo jaisten zirenean. Xabier Olarra

---

aldameneratu *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi) iz* aldamenera joan.

Laguna **aldameneratu** orduko, Maddik utzi egin dio bakarrizketa hutsalari, deseroso. ETC-literatura, saiakera

Aldameneratu zitzaion, eta elkarrekin begiratu zioten Nicori, isilik. ETC-literatura, saiakera

Begoren begi irekiak harrapatuta, konplize **aldameneratu** zitzaion amona. ETC-literatura, saiakera

Animalia motaren bat izango zen, ekaitzak izutua, eta, zer ere zelarik -oreina, zaldia, ezbairik gabe, apoduna zen-, lasterka bizian **aldameneratzen** ari zen, burua galdurik, sasiartea ebakiaz. ETC-literatura, saiakera

Jarraian, diban batean jesarri zen brau, eta mahaitxo bat **aldameneratuz** beronen gainean paratu erretratua, behinola Vinteuil jaunak berak nire gurasoei jo nahiko ziekeen partitura hura bere ondoan kokatua zuen bezala. ETC-literatura, saiakera

Belarjaleen muturrak urrutiratzeko eta **aldameneratzen** denari heltzeko. ETC-prentsa

Edozein arrazoi egokia da toki batetik alde egin eta beste batera bizitzera joateko: gaitz hiltzaile baten erasoa, landare indartsuago bat **aldameneratzea**, klima okertzea... ETC-prentsa

---

aldamenka *(corpusean **aldameneka** soilik) adlag* alboka.

Erradiazioa goi-beheak uztartuz ematen den bezala, adbekzioa berriz, aldez alde, **aldameneka** ematen da. Pello Zabala

Zezena ezkerraldean begira-begira, korrika eraso nion **aldameneka**. Joxean Sagaztizabal

---

aldamio *(ETCn **1.099** agerraldi; orobat **andamio** ETCn **27** agerraldi eta **aldamu** ETCn **18** agerraldi)* **1** *iz* egiten edo konpontzen ari den eraikin batean, langileek alde garaietan lan egin ahal izateko, hormatik zintzilik edo nolanahi eutsirik ezartzen diren oholak.

Urte berriko lehen asteak esperantzaz betetzen gaitu zeren eliza ondoan zernahi apailu hari dute metatzen, **aldamua** muntatuko dute dorrearen inguruan. Herria

Udaletxe zaharraren aurrean **aldamio** bat zegoen. Lopez de Arana

V. gaztea **aldamio** bat finkatzen zebilen ikastetxearen atzealdean eta, bat-batean, metalezko pieza handi bat jausi zitzaion bular gainera. Berria - Ekonomia

Hare gorago Anjel Mari Peñagarikano **aldamio** batean igota eta goi-goian Maialen Lujanbio. Berria - Kultura

Edo **aldamio** batera igo, zergatik ez. Jokin Muñoz

Margolari zebilen eta **aldamio** batetik erori zen, eta eraikuntzan dagoen "segurtasun falta" salatu dute sindikatuek. Berria - Ekonomia

Aldamio eta mailadiak ditut gogoan, eta haien tarteetatik zeru atalak. Juan Garzia

Ezkila dorrea **aldamio** azkarrez hari dute inguratzen. Herria

Zenbait astez beraz, gure dorrea **aldamu** azkarrez izanen da troxatua. Herria

Aldamio koxkor bat eraiki zen, txirrika bat atondu, gida-sokak paratu. Juan Garzia

Aldamio hertsietan, ikusleen artean egin genuen bide. Aingeru Epaltza

Irrist egiten zuen **aldamio** labainkorretan. Jasone Osoro

Ferroforman, ordea, denetarik ikus daiteke: harkaitz gogorrenak apur ditzaketen zulagailuak, zerrategi mugikorrak, **aldamio** itsaskorrak eta edozein burdindegitan salgai dauden erreminta txikiagoak. Berria - Ekonomia

Aldamio gainetan, banku batean eserirk eta itsasoari begira. Berria - Kultura

Laurogei lerro horiei eusteko **aldamio**-egitura handia sortu behar da. Ana Urkiza

Bi **andamio** oholtza gainean, eta pantaila bat, sabaitik zintzilik bezala. Berria - Kultura

2 irud/hed

Barne-**aldamio** gisa ere baliagarria da eskeletoa, gorputzeko organo eta sistemei beren lekuan eusteko. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldamio bat** (4); **aldamio batetik erori** (4)
> **aldamiotik erori** (3)

---

aldamu ik **aldamio**.

---

aldapa **1** *iz* alde bat bestea baino garaiago duen lur eremua edo bidea. ik**malda**; **aldats**.

Herriaren erdian, **aldapa** baten abaroan, eliza handi bat. Anjel Lertxundi

Basoa utzi eta beste **aldapa** bat igotzen duenean, harriarekin egokitzen da ibiltaria. Bernardo Atxaga

Bi kilometroko **aldapa** da, %8koa. Berria - Kirola

Ilunpetan igo genuen **aldapa**, bidean argirik ez zegoen eta. Juan Kruz Igerabide

Isatzeko **aldapa** igotzen genuen askotan anaiak eta biok osabari janaria eramateko. Berria - Kultura

Elkarrekin igo zuten Alcala kaleko **aldapa**, eta Peligros kaleko kantoira iristean, Fornos kafetegian sartzeko erregutu zion Montanerrek. Josu Zabaleta

Garajetik autoa atera, eta **aldapa** jaitsi nuen; autoa bazterrean utzi, esku-argia piztu, eta horma artetik sartu nintzen, putzu sakonerantz. Juan Kruz Igerabide

Biak jeep batera igoarazi zituzten, bultzaka, eta **aldapa** aldera abiatu ziren abaila batean. Juan Kruz Igerabide

Aldapa gogortzen zenean, Idoia atzean geratzen zen, eta eskua ematen nion. Juan Kruz Igerabide

Herriaren erdian, **aldapa** baten abaroan, eliza handi bat dago. Anjel Lertxundi

Hil zenean, Daviden ondorengoen hilobietarako **aldapa** ondoan ehortzi zuten Ezekias. Elizen arteko biblia

Aldapa pixka bat bazuen; eta, goialdetik, burua altxatuz gero, Valerien mendiko behe kuartelak begiztatzen ziren. Karlos Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aldapa aproposa da Oskitxe gaina abenturazaleentzat. Berria - Harian

Aldapa gogorra ginuela laster, oroitarazi zigun korrikalari gazteak, lehenik ordokiak animatuko gintuela bi paxeta lerroen artean. Piarres Aintziart

Inoiz ez zitzaidan nekezago egin etxerako **aldapa** piko hura. Javi Cillero

Baserria gogoratzen zuen bezal-bezala zegoen, ibarrean, Lizuniagako bentara zeraman **aldapa** xutaren hastapenean. Elena Touyarou

Farolez argituriko **aldapa** luzea zazpigarren ateraino igotzen zen. Agustin Otsoa

Helmugatik 10 kilometrora zegoen **aldapa** txikian egin zuen erritmo aldaketa. Berria - Kirola

Ordeka, **aldapa** txikiekin. Berria - Kirola

Kirsipuu eta Nazon esprinter petoak dira, **aldapa** txikienean ere majo sufritzen dute. Berria - Kirola

Aldapa handi baten mehatxuak isilarazi zuen bat-batean. Koro Navarro

Aldapa galanta zegoen egiteko, herrietan garaienetakoa baitzen Salvenach. Josu Zabaleta

Aurrean bizpahiru bidezidor aurkitzen genituenean, errazena hartzen nuen nik, **aldapa** ttikiena zuena, eta nire anaiak berriz zailena. Bernardo Atxaga

Gure kaletik ezkerretara jo, eta **aldapa** leunean gora muttur bat egin ondoren... itsasoa agertu zait aurretik! Txillardegi

Autobusak, **aldapa** estu batean, bi ibiltari motxiladun belar hesiaren babesera salto egitera behartu zituen. Koro Navarro

Bideak erreka bati segitzen zion, **aldapa** malkartsu batean behera. Anjel Lertxundi

51 kilometroko erlojupekoa du bere alde, baina **aldapa** tenteetan asko sufritzen du. Berria - Kirola

Zurrun, hotz eta ubelduta, kutxei mutur batetik heldu eta **aldapa** belartsuan gora arrastaka eraman zituzten gazteluak aurrean zituen haritzezko ate handietara. Iñaki Mendiguren

Eta **aldapa** latzetan. Joxerra Garzia

Irundik gora Erlaitz gaina, Euskal Herriko **aldapa** itoenetakoa. Berria - Kirola

24 kilometro, **aldapa** gaiztoak, atsedenerako tarterik ez, eta garapenekin jokatu beharrekoa. Berria - Kirola

Tontorraren ingurua hartu eta atze aldeko **aldapa** zorrotza igotzen hasi ziren. Joanes Urkixo

Urriaren azken egunetako arrastiri euritsu eta nahasiaren amaieran, bost zaldizkoak **aldapa** bihurgunetsua igo eta Bree hegoaldeko atera iritsi ziren. Agustin Otsoa

Urrunago, **aldapa** maldatsuan behera zihoan bide bat, zeru urrunaren kontrako ganibetak balira bezala ageri ziren bi haitz bertikalen artetik. Agustin Otsoa

Ardiak ikaratu genituen eta ahuntzak balira bezala lasterka hasi ziren **aldapa** haizetsuan gora eta behera. Koro Navarro

Aragornek burua biratu zuen eta bere atzean elurretatik jaisten zen **aldapa** arrokatsua ikusi zuen. Agustin Otsoa

Ekialdean eta hegoaldean **aldapa** biluzi eta arrokatsuak harkaitzetan maldatsuago bihurtzen ziren. Agustin Otsoa

Aldapa helikoidal batek lotzen zituen elkarrekin Liburuen Dorre osoan maila guztiak goitik beheraino. Jon Muñoz

Hortik askoz samurragoa da **aldapa**, zalantzarik gabe. Patxi Iturritegi

Aldapa gero eta latzagoa zen, baina lasai gindoazen, guardia ibiltarikoak ez baitziren hain paraje urrutietaraino ausartzen. Anjel Lertxundi

Gero azken **aldapa** dator herrira benetan sartu baino lehen. Mikel Hernandez Abaitua

Estua da bidea, eta itoa **aldapa**. Berria - Kirola

3 (izenondo gisa)

Eta nekeak aldapa **aldapago**. Joan Mari Irigoien

Igandean korrituko da Flandesko Tourra, 258 kilometro eta harbide **aldapen** klasiko handia. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan)

Autoari kosta egiten zaio zenbait **aldapa**-zatitan abiadurari eustea eta hirugarren martxa sartzen dut. Mikel Hernandez Abaitua

Hori esatearekin goraka eraman zuen burua Aita Arbizuk; Eitzagako **aldapa** hasieran geunden, ordea, eta keinu horrekin ez zerua baina han gaineko ospitalea ekarri zidan gogora. Xabier Mendiguren Elizegi

Josueren seme eta Mitzpako buru zen Ezerrek harresiaren ertzean dagoen armategiko **aldapa**-aurrealdea konpondu zuen. Elizen arteko biblia

Gutxi gorabehera mendiaren **aldapa** erdira iritsi zirenean, beroa izugarria baitzen eta igoera latza, egarri bizia sortu zitzaion nekazariari. Askoren artean

5 *irud*

Niretzat bizitza, bere **aldapa**, zailtasun eta atsegin guztiekin, urpean gertatzen den kontua baita eta Rita da nire biriketara airea eramaten dakien bakarra munduan. Hasier Etxeberria

Izugarri **aldapa** luzea da bizitza, eta ez dakigu noiz amaituko den. Javi Cillero

Amaitu berri nuenarekin aski nekaturik nengoen ordurako, eta berriro hasten zen niretzat udazkeneko **aldapa** pikoa, jai eta aste besteren liburuez arduraturik edukitzen nauena. Xabier Mendiguren Elizegi

Krisiaren **aldapa** pikoan, Lázló-József Bírók hainbat eginkizun izan zituen: aduanak zaintzen ibili zen, auto-gidari, hainbat tresnaren saltzaile, burtsako artekari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lehengo gorri hura zuritu egin da kolpera, biluziak jantzi, gustuko xokoño eta toki sakratuenak -nere barne produktu gordinenaren jomuga izanak- **aldapa** latz bilakatu, eta haietan obratzen ziren eginkizun eta egingurak ere ezinkizun beltz dira orain, Erabakiaren bortxaz. Iñaki Segurola

Galbidea beheranzko pendiz arina da; onbidea, aldiz, goranzko **aldapa** neketsua. Berria - Kirola

Gabonak pasa bezain laster urtarrileko **aldapa** aipatu ohi dugu, gastatutako guztiak biluzik utzi eta egunero aurrera egiteko gorriak ikusi ditugula adierazteko. Berria - Euskal Herria

6 ***aldapa behera*** aldapan behera; beherakako aldapa.

Bai, badakigu aldapa gora igo ondoren, **aldapa behera** jaistea beharrezkoa dala. Jokin Urain

Hasi nintzen, bada, **aldapa behera**, mugalariak esandako aldera. Anjel Lertxundi

Zeren bide nagusia muinoz josirik zegoen, nahiz eta, antzematen ez bazitzaion ere, **aldapa behera** zen dena. Jose Morales

Handik pixka batera, auto-burrunba sentitu genuen, abaila bizian **aldapa behera**. Juan Kruz Igerabide

Aldapa beherak ondo dakizu zer duen bueltan. Arantxa Iturbe

Zinera joan nahi nuen, baina geriatrikotik hirira doan **aldapa behera** labaina omen dago. Anjel Lertxundi

· Langabezia tasa **aldapa behera** joan da orduz geroztik eta %8an iritsi zen joan den hil hondarrean. Berria - Ekonomia

7 ***aldapa gora*** aldapan gora; gorakako aldapa.

Bai, badakigu **aldapa gora** igo ondoren, aldapa behera jaistea beharrezkoa dala. Jokin Urain

Sekulakoa nuen mina, baina **aldapa gora** segitu nuen hala ere: ordu arte baino neke handiago batez, ordea. Anjel Lertxundi

Kaweahren ondoan geunden ordurako, eta etxerantz egin dugu, **aldapa gora**. Bernardo Atxaga

Aldapa gora zaigu zelaia. Joxerra Garzia

· Hamazazpi urterekin eskola militarrean sartu ez izanak erabat **aldapa gora** jarri zion ofizial izatea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Senarrak lasai egoteko esaten zidan, hasieran guztiei egiten zaiela **aldapa gora** lan berria. Jasone Osoro

8 ***aldapa gora egin***

Aldapa gora egingo zaie bozketaren egunera arteko eguna. Berria - Euskal Herria

9 ***aldapan behera*** *aldag* aldapan goitik behera.

Aldapan behera goaz, galtzadarriz egindako kaleetan, porturantza. Pako Aristi

Lehen bekatua omen da larriena, atea zabaldu ondoren **aldapan behera** joatea bezain erraza omen da bide makurretik segitzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Konturatzerako, **aldapan behera** zihoan taxia, Obabako errepide nagusiaren bila. Bernardo Atxaga

Orduan, makal sentitu eta **aldapan behera** jaitsi zen hankak leher eginak zituela. Karlos Zabala

Aldapan behera bide egin zuten urrats onean, zaku bedera ehuntzeko hari zeramatela. Elena Touyarou

-Begirada bat emango diogu -agindu zuen Fionnek, eta zaldia **aldapan behera** behartu zuen. Joanes Urkixo

Aitak eskua askatu zidan, eta **aldapan behera** lasterka abiatu zen; gogoan dut harriturik utzi ninduela aitaren lasterka egiteko moduak. Juan Kruz Igerabide

Bi aldiz egin zuen laprast **aldapan behera** eta, lurra jota, lohiz itsustu zitzaizkion gaztaina koloreko prakak atzeko aldean. Hasier Etxeberria

Auto bikainak ere bai, eta errepidea libre ere bai, baina lehen aldiz dabiltzanek beldurra pasatzen dute **aldapan behera**. Berria - Kirola

Orduko hartan ere, gurasoen eskutik nindoan gure auzoko **aldapan behera**. Juan Kruz Igerabide

Negar batean doaz Luhiteko aldapan gora; garrasi erdiragarriak dira Horonaimgo **aldapan behera**. Elizen arteko biblia

10 ***aldapan gora*** *aldag* aldapan behetik gora.

Aldapan gora abiatzen da emakumea, harresietarantz. Javi Cillero

Lehendabizi Julien atera zen zumarditik, eta etxera abiatu zen, gorputz mardula aurrera makurtuta, **aldapan gora** baitzihoan. Ramon Saizarbitoria

Gaizkile bezala atxiloturik, ibarrean behera eraman zuten eta gero **aldapan gora** Anasen etxera. Patxi Altuna

Aldapan gora zoazte biak, arnasestuka biak, izerdi patsetan biak. Sonia Gonzalez

Hagrid lasterka joan zen Malfoyrekin, **aldapan gora** gaztelurantz. Iñaki Mendiguren

Lizartzatik oso gertu zegoen bidegurutzea, eta handik lau kilometro eta erdi baino gutxiago geratzen zen Orexako plazaraino, denak **aldapan gora**, hori bai. Juan Luis Zabala

Labartzarantz abiatu da **aldapan gora** gure Opel zaharra. Txillardegi

Ordu batzuk geroago, **aldapan gora** igo ginen Basauritik espetxeraino automobilean sartuta. Rafa Egiguren

Eskuin aldera jo nuen, **aldapan gora**, San Martin kaperaraino. Txillardegi

Gogo txarrez obeditu nion eta amaren atzetik joan nintzen, arnasestuka, **aldapan gora**, jauntxoarenera, familia osoa kale gorrian utzi gintuen gizonaren etxera. Juan Martin Elexpuru

Auto gris bat dator **aldapan gora**, kostaldeko bidearen bakardadean sigi-saga. Patxi Iturritegi

Luze egiten da bidea **aldapan gora**. Arantxa Iturbe

Autora itzuli, eta **aldapan gora** abiatu nintzen poliki, lehen martxan. Juan Kruz Igerabide

Herriko **aldapan gora**, Laureano Avarozotik etxera zihoan, aldarte txarrez. Jon Maia

Aurrera egin genuen berriz ere trostan; Constitution **aldapan gora** joan ginen, jaitsi ginen Lammas kalean behera, jostunak txirrina joka segitzen zuen, eta zakur bat ihes atera zen, intzirika, gurpilen paretik. Koro Navarro

Negar batean doaz Luhiteko **aldapan gora**; garrasi erdiragarriak dira Horonaimgo aldapan behera. Elizen arteko biblia

Zubigaineko **aldapan gora**, iluntzea izanik ere bide bazterreko baserriak argi ikusten dira: ilargi betea da gaur. Xabier Etxabe

Astarloatik eta Ezkurditik zuzen joanez gero, askoz lehenago helduko zela jakin arren, elizari bizkar eman, eta Ospitaleko **aldapan gora** abiatu zen, hirigunetik kanpo aldera. Pedro Alberdi

O, barkatu, nahastu egin gara –esango zieten handik ord batzuetara, elurretan eta **aldapan gora** ibili eta gero–. Bernardo Atxaga

Errepidez luze ibili, eta, **aldapan gora** denbora batean joan eta gero, taxia atalondo erdi ireki baten aurrean gelditu zen. Juan Kruz Igerabide

Bizkor abiatu zen Ruche jauna Émile-Goudeaurantz zeraman **aldapan gora**; handik bi gurpilera zegoen. Jon Muñoz

11 ***aldapan egon***

Geltokiaren aurreko **aldapan dauden** kafetegi-jatetxe haietako batean eseri nintzen, zain; eta "tilleul" bat eskatu nuen. Txillardegi

Aldapan dagoen eremuan defentsarako harresiren bat aurkitzea espero dutela ere onartu zuten langileek, baina oraingoz egin duten zundaketa bakarrean ezer ez dute aurkitu. Berria - Kultura

Agirre eta neu, bitartean, bigarren automobil baten barruan, Begoñako basilikarako **aldapan dagoen** baranda baten atzean jarri ginen, metrailetak eskuan, babesa emateko. Rafa Egiguren

Apur bat gorago beste bihurgune bat zuen, eta berriro ekialderantz egin ostean, konoaldean landuriko muturrean sartzen zen, handik mendiaren **aldapan zegoen** ate ilunera iristeko, Sammath Naurko Atera. Agustin Otsoa

12 ***aldapan gora egin*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Aldapan gora egin dut eta nahi adina toki aparkatzeko. ETC-prentsa

Lehen pedalkadatik guztia eman behar duzu eta gogorra da erritmo horretan **aldapan gora egitea**. ETC-prentsa

Portuan hasiko dira egiten, eta Artzapetik, Kale Nagusian gora, frontoira iritsiko dira; seguru asko, **aldapan gora egingo** dutenez, ondo nekatuta. ETC-prentsa

Aldapan gora eginda, jai eguna nabari-nabaria da Ezkerraldeko herri horretan. ETC-prentsa

Etxe gutxi batzuk zeuden orduan, baina, pixkanaka-pixkanaka, **aldapan gora egin** zuten bizilagunek eta, XIX. menderako, egungo Algortaren eremua hartzen hasi ziren. ETC-prentsa

Aldapan gora egin ahala, ordea, zezen beltz batek sekulako abiadura hartu, guztiak gainditu eta sei metro aurretik jarri zen Udaletxe plazara iritsitakoan. ETC-prentsa

Moreau igaro zen lehen postuan Tourmalet eta Aubisque gainetik, eta Pauera bidean, **aldapan gora egiterik** izan ez zuena egiten saiatu zen Barredo. ETC-prentsa

Bai, beldurrak nago Saizarbitoriaren nobela berriaren 575 orrialdeak Martutene-ren 784ak bezain **aldapan gora egingo** zaizkidan. ETC-prentsa

13 ***goi aldapa***

Belasoro **goi** aldapa handikoak. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aldapa aldera** (3); **aldapa asko** (3); **aldapa baino** (3); **aldapa bat** (5); **aldapa batean** (5); **aldapa baten** (4); **aldapa behera** (25); **aldapa behera abiatu** (4); **aldapa belartsuan** (3); **aldapa da** (8); **aldapa eta** (6); **aldapa gehiago** (3); **aldapa gogor** (3); **aldapa gogorra** (6); **aldapa gora** (38); **aldapa gora izango** (3); **aldapa gora jarri** (5); **aldapa hura** (5); **aldapa igo** (3); **aldapa leunean** (3); **aldapa luze** (3); **aldapa luzea** (5); **aldapa luzea da** (3); **aldapa neketsua** (3); **aldapa nola** (3); **aldapa piko** (7); **aldapa pikoa** (3); **aldapa pikoan** (3); **aldapa pikoetan** (3); **aldapa txiki** (5); **aldapan behera** (59); **aldapan behera abiatu** (4); **aldapan gora** (97); **aldapan gora abiatu** (8); **aldapan gora igo** (3); **aldaparen bat** (5); **aldaparen erdian** (3); **aldaparik ez** (10); **aldaparik gabeko** (3); **auzoko aldapan** (3); **azken aldapa** (3); **baina aldapa** (6); **batez besteko aldapa** (3); **beste aldapa** (3); **besteko aldapa** (3); **da aldapa** (7); **da aldapan** (4); **da aldapan behera** (3); **eta aldapa** (28); **eta aldapa gora** (3); **eta aldapak** (4); **eta aldapan** (19); **eta aldapan behera** (6); **eta aldapan gora** (11); **genuen aldapa** (3); **goranzko aldapa** (3); **hainbeste aldapa** (4); **hiru aldapa** (3); **kilometroko aldapa** (5); **metroko aldapa** (3); **moduko aldapa** (3); **ondorengo aldapa** (3); **oso aldapa** (4); **oso aldapa gora** (3); **urtarrileko aldapa** (7); **zegoen aldapa** (4); **zen aldapa** (4); **zen aldapan** (5); **zen aldapan behera** (4); **zuen aldapa** (3)

---

aldapaburu *iz* aldaparen burua.

Labartzako **aldapaburuan**, Surf-Eskola txabola itsusiaren ondoan, San Telmo Hondartza hitzen azpian, izkribu bana jarrita zegoen zutoin batean. Txillardegi

Eta erloju borobil bat ere bai, **aldapaburuan**. Txillardegi

---

aldaparo *iz* alorrak ureztatzeko, errota ibilarazteko edo kidekoetarako ubidea edo erretena. ik **antapara**.

Juanito Telleria-k, Jauregiko presaren **aldaparoko** petrilean eserita (asper-asper eginda, suposatzen dut), haurrekin solas-tea maite zuen; frontoira edo mojetara handik

pasatzen ginen haurroi, gozokiak ematen zizkigun. Joxe Azurmendi

Mea-hobia arras ezlekuan zen, **aldaparo** malkor batean. Juan Garzia

Urrutira, azkeneko etxeen ondoren, hiriaren luzapenaren ondoren Isonzo-ren arroa ageri zen mendiaren eta ordokiaren artean; Isonzo, bere hondoko harri xehea eta bere ur urdin leiharrezko **aldaparoekin**, Tagliamentorenen hain berdinak denak. Josu Zabaleta

---

aldapatsu *izond* aldapa handikoa.

Korurako eskailera **aldapatsu** hura igo behar izaten zuten. Jokin Urain

Zubipetik atera, Trafalgar Terrace gurutzatu, eta ziztu bizian joan nintzen kale **aldapatsuetan** gora. Koro Navarro

Gotorlekuen aurrean egiten den zabaldegi **aldapatsua**, erasotzaileak agerian jartzera behartzen duena. Karlos Zabala

Atea zeharkatu eta bide bihurri eta **aldapatsuan** behera abiatu ziren. Agustin Otsoa

Tomsk, hogeita bost mila lagunen bizilekua, modu ikusgarrian hedatzen da mailaka-mailaka hegal **aldapatsu** samarreko mendixka batean gora. Karlos Zabala

Orain, bidea **aldapatsuago** bilakatuz doa. Piarres Aintziart

Auzo zaharra [...] plazan elkartzen diren bi kalexka estu, bihurgunetsu eta **aldapatsuk** osatzen dute ia osorik. Koro Navarro

Itsasondo herri **aldapatsua** izanik (eta bera gainera beheko kalean jaio eta bizi izan zena), astotxo bat erosi zioten zazpi urte zituela, eskolara eta elizara joan ahal izateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Ederrak dira Esloveniako landak, berdeak, ez oso **aldapatsuak**, eta bizitza patxadatsu baten inpresioa transmititzen dute. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldapatsu eta** (3); **aldapatsuetan gora** (3); **aldapetan behera** (5); **aldapetan gora** (3); **bide aldapatsua** (3); **eta aldapatsu** (4)

---

aldapatxo *iz adkor* aldapa txikia.

Astun ikusi zuten kalezuloko **aldapatxoa** igotzen, eta, aitarenera sartu zelarik, aitaren pareko eserleku batean abaildu zen. Patxi Zubizarreta

Zuzenean portura joateko asmoarekin hasi nintzen ibiltzen, baina ez nuen batere norabide zuzena hartu, pausoek **aldapatxo** batera eraman baininduten eta **aldapatxoak**, berriz, pendizean eraikitako etxe-tarte estu eta harresi baxu goroldiotsuen arteko harmailetan gora. Anjel Lertxundi

Zalgurdiak abiada hartu zuen gaztelura zihoan **aldapatxo** luzean. Iñaki Mendiguren

Harrizko **aldapatxo** hartatik lerratu eta, zarata handiz, kriptara erori nintzen. Alberto Ladron Arana

Gauza guztiak txabolara jaso eta denak **aldapatxoan** behera abiatu ginen, kontu kontari. Jon Maia

---

aldapatzar *iz adkor* aldapa handia.

-Arnasa ere ezin nuen hartu, **aldapatzar** horretan! -tio Julianek-. Trabatzekotan, Mortiroloren tankerako **aldapatzarrak** trabatzen zaizkio Caisse D'Epargne taldekoari. Jon Maia

---

aldaragailu *iz* aldaratzeko gailua.

Zaletasun hori, atsegin hori, erdi ahaztua banuen ere, indar handiz berpiztu zitzaidan Bennett pazienteekin ikusi nuenean; ikusle soila baino gehiago izateko gogoa eman zidan: zerbait egiteko gogoa, **aldaragailu** bati heldu eta ebakuntzetan parte hartzekoa. Xabier Olarra

---

aldaraketa *iz* aldaratzea, urruntzea.

Substantzia espazioan bertan eragingarriak diren indarren bitartez baino ez dugu ezagutzen, edo beste substantziak beregana erakartzen dituela (erakarpena), edo bertan sartzea oztopatzen diela (**aldaraketa** edo sarrezintasuna); espazioan agertzen den substantzia osatzen eta guk materia deitzen diogunaren beste berekitasunik ez dugu ezagutzen. Ibon Uribarri

---

aldarapen *(corpusean ez dago; ETCn **450** agerraldi)* **1** fisikan, indar baten eraginez bi gorputz elkarrengandik urruntzea. *iz* ik **aldaratze**.

Fusio nuklearrerako, elkar aldaratzen duten nukleo arin bi batu egin behar dira, hots, bi nukleo horien **aldarapen** elektrostatikoa gainditu, nukleoak batzeko gai izan daitezen. ETC-literatura, saiakera

Aldarapena bigarren mailako efektu gisa hartzera jotzen zuten (XVII. mendean zehar errebote mekaniko motaren bati egotzi zitzaion **aldarapena**), eta aldi berean eroapen elektrikoari -Grayren efektu aurkitu berriari- buruzko hala eztabaida nola ikerketa sistematikoa ahal bezainbeste atzeratzera. ETC-literatura, saiakera

Mikrokanaletako bat **aldarapen** gunearen ondoko bi kanaletan banatuz, ioi kargarik gabeko ur gezatuak bakarrik igaro ahal izango du kargatutako aldea, eta edateko urarentzako kanalera bideratu. ETC-prentsa

Izan ere, atomoak bat egiteko nukleoen arteko **aldarapen** elektrikoa gainditu behar da eta izugarrizko energia behar da horretarako. ETC-prentsa

Hala ere, elektrolitoak eta, bereziki, tentsioaktibo kationikoak gehitzeak elektrolitoek eta tentsioaktiboek partikulen arteko **aldarapen** elektrostatikoa murrizten duenez (karga negatiboa dute) kontzentrazio txikiagoekin ekoitz daitezke gelak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Atomoaren egonkortasuna oreka ahul eta konplexua da; alde batean, nukleoaren eta elektroien arteko erakarpen coulombdarra dago, eta, bestean, elektroien arteko **aldarapenak** (horiek ere coulombdarrak dira). ETC-zientzia, zuzenbidea

(a) Erakarpen- eta **aldarapen**-energiak eta energia garbiak eskematikoki azaldu bi atomoren edo ioiren arteko distantziaren aurrean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldarapena eta erakarpena ziren jariakin horren gehiegiaren edo gabeziaren ondorioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste hirurak elektroien eta nukleoen arteko elkarrekintza elektrikotik datoz: hirugarrena elektroien eta nukleoen arteko erakarpen elektrikoa da, laugarrena elektroi desberdinen arteko **aldarapena** da eta azkenekoa nukleo desberdinen artekoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 *alderapen-indar pl*

Azpimarragarriena da ekintza frenetiko hori ausazkoa dela (ezin konta ahala topaketaren segida bat da), eta erakarpen-eta **aldarapen**-indar soilek zuzentzen dituztela. ETC-literatura, saiakera

Karga positiboak neutralizatzen bide zituen elektroien arteko **aldarapen**-indarrak, bestela desegin egingo baitzen atomoa. ETC-literatura, saiakera

Bata indar zentrifugoaren eta bestea zentripetoaren eraginpean egotetik sortzen zen **aldarapen**-indarra zegoen bien artean. ETC-literatura, saiakera

Aldarapen-indar horiek gainditzeko, nukleoek energia zinetiko handiak behar dituzte. ETC-prentsa

Bi indar-mota behatzen direnez gero, erakarpen-indarrak eta **aldarapen**-indarrak, bi karga-mota daude, positiboak eta negatiboak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Presioaren dimentsioak ditu, eta molekulen arteko erakarpen- eta **aldarapen**-indarren ondorio da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erakarpen-indarrek behera egingo dute distantziaren seigarren berreturarekin; **aldarapen**-indarrek, ostera, hamabigarrenarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Atomoak hurbilegi badaude, elektroi-elektroi eta nukleo-nukleo **aldarapen**-indarrak indartsuago bihurtzen dira erakarpen-indarrak baino. ETC-zientzia, zuzenbidea

aldararazi, aldararaz, aldararazten *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* du *ad* urrunarazi.

Eta inminentzia horrek denboraren neurria **aldararazi** du. ETC-prentsa

Astero egiten duten mobilizazioaren ibilbidea **aldararazi** egin dio Ertzaintzak . ETC-prentsa

Nafarroakoarekin egin zuen bezala, EAEko fracking-aren aurkako legea ere **aldararazi** du Espainiako Auzitegi Konstituzionalak. ETC-prentsa

Ez karga positiborik ez negatiborik ez duenez, ezin ditu **aldararazi** berez nukleo atomiko positibo pisutsuak, hantxe estu-estu bildutako bere protoiekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

aldaratu, aldara(tu), aldaratzen **1** da *ad* urrundu, apartatu.

Gauzen materia sua dela eta izadia su hutsez osa daitekeela pentsatu zutenak, eta gauzen printzipio sortzailetzat airea ezarri zutenak, edo urak berez egiten dituela gorputzak edo lurrak dena sortzen eta gauzen izaera guztietara aldatzen duela pentsatu zutenak, argi dago egiatik oso urrun **aldaratu** zirela. Xabier Amuriza

Maindire batzuk hartu galtzarbean, eta hanka puntetan ibiliz **aldaratu** zen, ni ez esnatzeko bezala. Juan Garzia

Nire ohea, hain zuzen behar-beharrezkoa zitzaidana, iruditzen zitzaidan, orduan, bertze nehorena baino desiragarriagoa, eta damuz baizik ez nintzen handik **aldaratua** . Jon Muñoz

Beranduegi **aldaratu** nintzen zugandik, eta bilatzen ari nintzen presuna ez nuen kausitu. Jon Muñoz

Gogoz kontra **aldaratu** zen boatik. Jon Muñoz

Bake honek ematen du parada, Aita Sainduaren aulkia apaltzeko eta menturaz Erromatik **aldaratzeko** . Piarres Xarriton

Nukleoak positiboki kargatuta zeudenez, **aldaratu** egiten ziren. Fernando Morillo

Bere adin handiarekin osagarriz ahuldua izana gatik ez zuen bere etxetik **aldaratu** nahi. Herria

2 du *ad*

Zeren buruzagiek Donibane Lohizunetik Parise eskualdera **aldaratuko** dute Fagor-Brandt, holako marka handi batek bere egoitza hiri handi batean baizik ez dezelakotz ukan, omen! Herria

Eta, morroiek txakurrak hartzaganik **aldaratzen** eta apartatzen zituztela, anaia eta hartza aurkitu ziren buruz buru. Joan Mari Irigoien

Esku-ahurraz, orria garbitu zuen Ruche jaunak, gomaren hondarrak **aldaratzeko** . Jon Muñoz

Saiatu zen sabela bere burutik bereizten; begiak estutzen eta arnasa eteten zion sabel hura handik **aldaratzen** . Juan Garzia

Mundu honetako ustelkeria arruntean, hobenaren esku urreztatuak justizia dezake **aldara** ; eta maiz ikusi ohi da gaizkintza-sariak berak erosten duela legea. Juan Garzia

Bere jantziak madarikatu zituen, zeren hark zioenez, nigandik **aldaratzen** omen baitzuten, arma beretsuekin nahi omen zen nirekin borrokatu: baina nire ahalke soberazkoak uko egin zion asmo hari, eta nire fereka eztiek ez zioten denborarik utzi. Jon Muñoz

Leihotik, ezerezari begiratzen dio; gero nigan pausatzen ditu begiak lipar batez, baina **aldaratu** egiten ditu deblauki. Eskarne Mujika

Beharbada, amaren heriotzak bere sen onetik **aldaratu** zuen. Javi Cillero

3 du *ad* alde batera egin.

Kapitaina sartu zenean, burua **aldaratu** eta aurpegia ezkutatu zuen, ez senarrari eta ez lagunei erantzuten ez ziela, eta bakarrik egon zen bi edo hiru orduz. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldaratu egiten** (3)

aldaratze **1** *iz* urruntzea, apartatzea.

Ikusmen perfektutik dagoen **aldaratzea** oso txikia da gehienetan. Irene Aldasoro

Germaine Laborde andereak eta igandean Andre Lacabe jaunak goretsi eta eskertu dute sei urtez gure artean erabili dituen lan guziez eta erran diote **aldaratze** horrek zonbat penatua uzten duen gure parropia. Herria

Promulgatuak administrazio eta Estatu zerbitzuetako "arraza ariarraren garbitasun" legeak ("apirileko legeak") eta "jarauntsi gaixoa ekiditeko" lege eugenikoak, ondoriozko juduen **aldaratzearekin** zerbitzu publiko guztietatik. Joxe Azurmendi

2 (futbolean)

Skoubok bigarrena sartu zuen **aldaratze** batean, eta gozamenerako betarik ere izan zen. Berria - Kirola

Bigarren zatiko ordu laurdena bete eta berehala Juantxo Eliak zaintzen zuen atearen langara bidali zuen baloia Julik, eta **aldaratzea** ezin hobeto geratu zitzaion Eloyri area txikitik oso gertu. Berria - Kirola

Bigarren zatiko 6. minutuan partidari akabera eman zion Bartzelonak, Van Bommelen jaurtiketa baten **aldaratzea** baliatu baitzuen Eto'ok bigarren gola sartzeko. Berria - Kirola

Laugarren minutuan Edu Alonsok barnekaldi polita egin zuen bere hegaletik, eta Juanitok ia barrura bidali zuen **aldaratzea** . Berria - Kirola

Atzelarien lanean sakondu zuten, jolas moduko batzukin hasi, urrunketak, **aldaratzeak** eta mugimenduak lantzeko hainbat lan egin eta erremate saio batekin amaitu zuten entrenamendua. Berria - Kirola

aldarazi, aldaraz(i), aldarazten *(orobat **aldaarazi** g.er., **aldaerazi** g.er. eta **aldatuarazi** g.er.)* **1** aldatzera behartu.

Hik heuk aldatzen ez baduk, geuk **aldaraziko** diagu. Agustin Otsoa

Nola gainditu gizartearen iritzia **aldaraz** edo manipula dezaketen jarrera irrazionalak? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

-Ez egin nigana so, ez dezazun errukizko ekintza horrekin **aldaraz** ene burubide zorrotza. Juan Garzia

Zerk **aldarazi** du taldea? Berria - Kirola

Frankismoak zein neurritan **aldarazi** zuen homosexualen bizimodua? Berria - Euskal Herria

Aitzitik, bada berarengandik kanpoan bera **aldarazi** duen zerbait. Xabier Kintana

Ez dago Batasunaren eta ezker abertzalearen ildoa **aldaraziko** duen kanpo eragilerik. Berria - Harian

Testu honek XVI. mendeko gizartearen inguruan dugun ikuspegia **aldaraziko** du. Berria - Kultura

Eskakizun nazionalek beti **aldaraziko** dituzte lurraldeen mapak. Berria - Euskal Herria

Eta are gutxiago nahi luke, gaineratuko dut, inoren pentsamodurik **aldarazi** . Patziku Perurena

Beharrezko Izakia, kausarik gabea, bere esentziari erants lekiokeen ezerk ezin **aldaraz** dezakeena, betegina. Xabier Kintana

Hortako izan zen bozkatzailegoa bitan zatitzearen aurka -Dalitena berexiz-; Ambedkarren ideia hau Britainiarrek segitu zuten bainan Gandhik, gose greba eginez, ideiaz **aldarazi** zuen Ambedkar. Herria

Ni, berriz, ziur nengoen; gertatua gertatu zen-eta, ezin ezerk iragandakoa **aldaraz** . Edorta Jimenez

Orain zailena dator; hots, indar korrelazioa aldatzea, soilik horrela **aldaraziko** ditugulako politika neoliberalak. Berria - Ekonomia

Banako kontu horiek guztiok ez dute baliorik gertaerak **aldarazi** dituztelako edo gertaeron segida desbidera zezaketelako baino. Juan Garzia

Gero Karlen aurrean gelditu zen bakarrik, kruasana esku artean, maite ere ez zuen baina bizitza **aldarazi** zion gizonari zer esan ez zekiela. Eider Rodriguez

Patriciak barrura sarrarazi zuen mutikoa, eta beraren aurrean **aldarazi** zizkion arropak. Koro Navarro

Berak motzarazi al zizun ilea eta **aldarazi** janzteko modua? Oskar Arana

Jendea hiri handietara **aldarazi** zuen lurraldearen ertz batetik bestera. Elizen arteko biblia

Uste dut alferrik dela; ez zuk ez inork ez dio iritzia **aldaraziko**. Fernando Rey

Amodioak bere usteak **aldarazi** baino gehiago, bere usteetan sendotu zuen. Patxi Zubizarreta

Hala nola Frantziako eta Nafarroako Filipe Ederrak buru egin zion, lehenik, Bonifazio VIII.ari eta, gero, bere egoitza Erromatik Avignonera **aldarazi** zion Klemente V.a aita saindu frantsesari. Piarres Xarriton

Orobat **aldarazi** digute gizakiaren eta beste espezieen arteko erlazioei buruz genuen ustea, eta eboluzioa brikolaje gisa irudikarazi. Juan Garzia

Ezuste desatsegin hark erro-errotik **aldarazi** zidan gertakizunen ikuspuntua. Karlos Linazasoro

Egoki iritzi diogu hiriaren aldaketaren erritmoaren berri ematen duten datu horiek aipatzeari, adierazteko turismoak handitu egin zuela Donostia, baina ez zuela **aldarazi**. Askoren artean

Ezerk ezin zuen, baina, berak erabaki eta hautatua **aldarazi**: asmo sendo hura bere baitaren baitan hartua zuen. Patxi Zubizarreta

Eta horrek ez dio asmoa **aldaraziko**? Oskar Arana

Hitzek ere esaldi batean hartzen duten lekua alda dezakete, esaldiari esanahia **aldaraziz**. Iñaki Arranz

Genetikoki **aldarazitako** elementuez osaturiko jangai baliagarri asko izango ditugu salgai ohiko dendan. Edorta Agirre

Bazter guzietarik ateratzen dira zoin ederragoak, bainan beti helburu berarekin, diru poxi baten sakelaz **aldaaraztea**. Herria

Estrategia hori **aldarazteko** gakoa, ordea, egotekotan euskal indar politiko eta sozialen ekimen bateratuan dago. Berria - Euskal Herria

Beste kasu batzuetan, ordenagailuaren konfigurazioak **aldarazten** dituzte eta, hortaz, sarera konektatzerakoan kostu altuko lotura baten bidez egiten du. Berria - Euskal Herria

Martxoan egingo diren bozek Korsikako Asanbleako ildo politikoa **aldarazi** dezakete. Berria - Mundua

"Zeruan dagoena", hau da, betikoa eta egonkorra, inolako aldaketa motarik ez duena, ez esentzia aldatzerik, ez eta bere esentziatik kanpoko egoerarekiko aldaketarik ere, eta beste edozein gauzarekiko erlazioan ere ez; Beraren eta gainerako gauzen artean ez baitago erlaziorik, erlazio hori **aldaeraz** dezakeenik. Xabier Kintana

2 *iritziz aldarazi*

Egoera ezaguna zitzaion eta behin baino gehiagotan saiatu zen Kirxa nagusia **iritziz aldarazten**. Patxi Zubizarreta

Mutikoak kasurik ere egiten ez zionez, amari dei egin eta mutikoa **iritziz aldarazteko** eskatu zion erregeak, horrela salba zedin. Elizen arteko biblia

Garai batean bera gure Euskal Herriaren eskubideen alde izan zela, baina Balkanetakoak **iritziz aldarazi** duela. Edorta Jimenez

Nire ustez, bestela egin genitzakeen gauzak, baina ezin izan nuen **iritziz aldarazi**. Alberto Ladron Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aldarazi diote** (3); **aldarazi duela** (3); **aldarazi dute** (3); **aldarazi egin** (4); **aldarazi egiten** (3); **aldarazi eta** (6); **aldarazi nahi** (4); **aldarazi zion** (7); **aldarazi zituen** (4); **aldarazi zizkion** (3); **aldarazi zuen** (16); **aldarazteko eskatu** (3); **aldarazten du** (5); **aldarazten duten** (3); **aldarazten ez** (3); **ere aldarazi** (5); **ere aldarazi zuen** (4); **eta aldarazi** (4); **iritzia aldarazi** (3); **iritziz aldarazi** (4); **iritziz aldarazteko** (3); **iritziz aldarazten** (5); **jarrera aldarazteko** (4); **politikoa aldarazi** (3)

---

aldarazle *iz* aldarazten duena.

Ispilu itxura-**aldarazleak** iragartzen zituen iragarki apurtu bat haraxeago. Harkaitz Cano

---

aldarazpen *(corpusean ez dago; ETCn **218** agerraldi) iz* aldaraztea, aldaketa, eskuarki legeetan eta gisako testuetan. ik **modifikazio**.

Aldarazpen horiek, erabaki autonomo edo unibertsitate mailako eskumen esklusiboen bitartez, Euskal Herriaren eraikuntza nazionalarekin bat eginez, gure unibertsitaterako bide propioa egitea ahalbidetu eta zilegi eginbeharko dute. ETC-prentsa

Horrez gain, proposamen honetan Nafarroako autogobernua sakontzea ahalbidetuko duten zenbait **aldarazpen** ere jasotzen dira. ETC-prentsa

Diputatuen Kongresuko eta Senatuko politiken koordinazioan aurrera egitea, eta gauza bera Estatuaren erakunde bilbaren **aldarazpenari** batera bultza egiteko ahaleginean. ETC-prentsa

Konstituzioaren **aldarazpen** prozesua emango balitz, EAJk berriro aurkeztuko luke 2011ko abuztuan Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen aitortzan oinarrituta erregistratu zuen **aldarazpen** ekimena. ETC-prentsa

Hortaz, arlo honetan, legeak ez du **aldarazpen** gehiegirik egin, edukiari dagokionez behinik behin; egin-eginean ere, errespetatu egin du Konstituzioak ondorioztatzen duen esku-hartze gutxienaren printzipioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bizitza pribatuko harremanei dagokienez, orokorrean esan daiteke emakumeen eragina, oro har, bertute samurrenak bultzatuz eta latzenei erasoz gauzatzen dela, nahiz eta baieztapen hori izaera indibidual bakoitzak eragin liezazkiekeen **aldarazpen** guztiekin ulertu behar den. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dena den, gure herrian gizarte, ekonomia eta politikaren ikuspegitik **aldarazpen** sakonak gertatu arren, indarreko testua XIX. mendekoa da, bere oinarrizko muinean behinik behin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dena den, gure herrian gizarte, ekonomia eta politikaren ikuspegitik **aldarazpen** sakonak gertatu arren, indarreko testua xix. mendekoa da, bere oinarrizko muinean behinik behin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Solairu berriak eraikitzen badira edo eraikinaren nahiz gauza erkideen egitura edo fabrikan beste edozein **aldarazpen** egiten bada, horiek guztiek titulu eratzailea ukitzen dute, eta titulu hori aldatzeko araubidea bete behar da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, errege-dekretu hori argitaratu ondoren, legeria-**aldarazpen** garrantzitsuak egin dira, errege-dekretuaren edukian eragina dutenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aldarazte *iz* aldatzera behartzea.

Epe luzera negozio-iturri joriagoa da hedabideetan kanpainak eginez populazioaren zaletasunak **aldaraztea**, komunitate bakoitzarentzat beren bereizgarrien araberako berariazko elikagaiak ekoitzi eta transformatzea baino. Edorta Agirre

Garai hartan hain nintzen ni gaztea, ezen artean pentsatzen bainuen posible zela nagusi bati burubidea **aldaraztea**. Juan Garzia

Beraz, gobernu horren ardura da memento honetan EB-IUren jarrera "**aldaraztea**". Berria - Euskal Herria

Horrela, esaterako, ez da onartzekoa Zayd deritzon gizabanako honek, hasieran molekula bat izan ondoren, betegintza lortu arte, etengabeki aldatuz joan denak, bere burua **aldaraztea**, bere baitan era horretako itxuraldaketak sorraraziz. Xabier Kintana

Argentinako diktadurari buruzko iritzi publikoa aldatzeko kontratatu omen zuten AEBek BursonMarsteller, hori baita enpresa horren lana: iritzi publikoa **aldaraztea**. Edurne Elizondo

---

aldare *(orobat **altare** g.er.)* **1** *iz* meza ematen den mahai modukoa, berez harrizkoa; jainkoei opariak eskaintzen zitzaizkien harria edo leku jasoa.

-Eraiki hemen zazpi **aldare** eta presta iezazkidazu zazpi zekor eta zazpi ahari. Jose Antonio Mujika

Pisga mendi-gailurreko begiraleku batera eraman zuen. Han ere zazpi **aldare** eraiki eta bakoitzean zekor eta ahari bana eskaini zituen. Elizen arteko biblia

Laster, Venus eta Marteren **aldareak** Jesus eta Mariaren **aldare** bihurtu ziren Horrela profanatu zuen **aldare** hura. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Mila erre-opari eskainiak zituen **aldare** hartan Salomonek. Jose Antonio Mujika

Eta eraitsi egin zituzten atzerritarren hiriko plazan eraikitako **aldare** eta kultu-lekuak. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Santamaria la Real aurre-erromaniko estiloko eliza sinplea, dena arku, harri ederrez finkatuak horma urdinak, **aldare** sinple bat. Piarres Aintziart

Aldare handiaren gainean egin behar dituzu goizeko erre-oparia eta arratseko eskaintza. Elizen arteko biblia

Erretorak erran dauku bi **aldare** ttipietako 8 kandelerak norbeitek ereman zituela iragan astean. Herria

Seleukotarren agintaldiko ehun eta berrogeita bosgarren urtean, Kisleu hilaren hamabostean, izugarrizko idolo higuingarria ezarri zuen Antiokok **aldare** nagusiaren gainean. Elizen arteko biblia

On Camillo **aldare** nagusiko Kristorengana joan zen bere sumina askatzera. Koldo Biguri

Handik hiru urtera ezkondu ziren Nuestra Señora del Pilar-eko zilarrezko **aldare** barrokoan. Xabier Montoia

Egidazue buztinezko **aldare** bat, eta eskaini bertan zeuen ardi eta idiak erre-opari eta elkartasun-oparitzat. Elizen arteko biblia

Jerusalemen ziren sasikultuko **aldare** guztiak, bai eta intsentsua erretzeko aldareak ere, kendu eta Zedron errekara jaurtiki zituzten. Elizen arteko biblia

Guztiz ezohikoa zen " **aldare** mugikorrean" (aska gainean) meza ematea. Askoren artean

Aurrean dugu marmorezko **aldare** zibila. Edorta Jimenez

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hemen adierazten dena, berriz, Jesus gure Jauna alegia, beste leinu batekoa da, inoiz **aldare**-gizonik izan ez duen leinukoa. Elizen arteko biblia

Egizue erosta, apaizok, doluz jantzita; egizue garrasi, **aldare**-zerbitzariok. Elizen arteko biblia

Han zihoan ura **aldare** inguru guztian, erretena betetzeraino. Elizen arteko biblia

Erdirago, **aldare**-harrian etzanda, ereinotz adar polit bat ikusten zen, hosto lustretsu eta lore ugarikoa. Bernardo Atxaga

Kaliza, korporal, **aldare**-oihal eta meza-oparitarako erabiltzen den oro ederra izan dadila. Askoren artean

Juniperok gero eta erruki handiagoa zuenez, ez zuen nahikoa tunika ematearekin: liburuak, eliz jantziak, **aldare**-zapiak eta eskuetara zetorkion edozer gauza ematen zien behartsuei. Askoren artean

Gero, odol horrekin elkarketa-etxolan dagoen intsentsu usaintsuaren **aldare**-ertzeko adarrak igurtziko ditu Jaunaren aurrean, eta zekorraren gainerako odola elkarketa-etxolaren sarreran dagoen erre-oparien **aldare**-oinean isuriko. Elizen arteko biblia

Gainerako odola **aldare**-inguru guztian isuri zuen. Elizen arteko biblia

· Mila erre-opari eskaini zituen Salomonek **aldare** gainean. Elizen arteko biblia

Bildotsak bosgarren zigilua ireki zuenean, Jainkoaren mezuarengatik eta eman zuten testigantzagatik hildakoak ikusi nituen **aldare** azpian bizirik. Elizen arteko biblia

Apaizak zure eskuetatik saskia hartu eta Jaunaren zure Jainkoaren **aldare** aurrean ipiniko du. Elizen arteko biblia

Xehe-xehe egin zituen hango aldare eta irudiak, eta Baalen apaiz Matan hil egin zuten **aldare** aitzinean. Elizen arteko biblia

San Frantzisko otoitzean ari zen, eskuak jasorik, Aingeruen Andre Maria elizako **aldare** atzean, eta oihu egiten zion Kristori erruki zekiola herriari, etorri behar zuten hainbat ezbeharrengatik. Askoren artean

San Frantzisko **aldare** atzealdera joan eta otoitzean hasi zen. Askoren artean

Zutik zegoenean **aldare** alboan, Gabriel aingeruak esan zion seme bat jaioko zitzaiola: Joan. Joan Mari Lekuona

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horrela, ezabatua izango da Jakoben herriaren errua, baldin eta beren bekatua baztertzen badute, idolo-**aldare** guztiak, kararria bezala, hauts egiten badituzte eta Axera jainkosaren eta eguzkiaren ohorezko harri sakraturik gehiago gelditzen ez bada. Elizen arteko biblia

5 ***aldare nagusi***

Hilero, hogeita bostean, opariak eskaini behar zituzten **aldare nagusiaren** gainean ezarritako beste aldarean. Elizen arteko biblia

-Ba, esaten ari nintzen moduan, herri horretako elizaren barruan lanetan ibili izan dira eta, hara non, **aldare nagusia** mugitzean dokumentu batzuk azaldu dira. Edorta Jimenez

Aldare nagusiaren atzean, zutabe ilara bikoitzaren itzalpean, Ama Birjinaren kapera dago, isilez eta ilunez heze. Karlos Zabala

Apez zahar hagitz konkortu batek ematen zuen lehen meza **aldare nagusian**. Koldo Izagirre

Halere jaun erretorak kenarazi ditu **aldare nagusian** ziren sei kandeler ederrak. Herria

Erietxeko **aldare nagusian** eta alboetako aldare txikietan ipintzeko, Kristoren bataioa, Apokalipsia, Bautistaren predikua eta haren lepo moztea ere egiteko eskatu zioten Grecori. Berria - Kultura

6 ***aldare-zapi***

Juniperok gero eta erruki handiagoa zuenez, ez zuen nahikoa tunika ematearekin: liburuak, eliz jantziak, **aldare-zapiak** eta eskuetara zetorkion edozer gauza ematen zien behartsuei. Askoren artean

7 ***aldareko sakramentu***

37 Izan ere, gauza asko sagaratzen ditu Jainkoaren hitzak eta Kristoren hitzen indarrez burutzen da **aldareko sakramentua**. Askoren artean

-Ikusten al duzu Jesukristo gure jauna **aldareko sakramentu** guztiz santuan? -Ez jauna. Iñaki Segurola

Hau guztia Jaunak eman ohi dio gizaki bakoitzari, **aldareko Sakramentuaren** bidez bereziki". Joan Mari Lekuona

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldare aintzinean (6); **aldare aitzinean** (9); **aldare aurrean** (38); **aldare aurreko** (7); **aldare aurrera** (7); **aldare azpian** (4); **aldare bakoitzean** (4); **aldare bat** (20); **aldare bat eraiki** (6); **aldare ertzeko** (12); **aldare ertzeko adarrak** (10); **aldare eta** (15); **aldare gainean** (42); **aldare gaineko** (8); **aldare gainera** (4); **aldare gainetik** (6); **aldare inguruan** (12); **aldare nagusiaren** (9); **aldare nagusiko** (8); **aldare oinean** (6); **aldare ondoan** (14); **aldarea bere** (7); **aldarea berreraiki** (4); **aldarea egin** (7); **aldarea eraiki** (47); **aldarea eraiki omen** (16); **aldarea eraiki zion** (6); **aldarea eraiki zuen** (17); **aldarea ere** (9); **aldarea eta** (7); **aldarea zipriztindu** (4); **aldarea zipriztinduko** (7); **aldarea zipriztinduko dute** (5); **aldareak eraiki** (4); **aldareak eta** (6); **aldarean erre** (6); **aldarean erreko** (10); **aldarearen aitzinean** (5); **aldarearen artean** (4); **aldarearen gainean** (4); **aldarearen garbikuntza** (8); **aldarearen garbikuntza ohikunea** (5); **aldarearen inguru** (4); **aldarearen inguruan** (5); **aldarearen kontra** (4); **aldarearen ondoan** (6); **aldareko kristok** (5); **aldareko kristoren** (4); **aldareko kristori** (8); **aldarera igo** (6); **apaizak aldarean** (6); **apez aldarean** (15); **baalen aldarea** (4); **baten aldarean** (5); **bi aldare** (4); **brontzezko aldarea** (6); **da aldarea** (4); **du apaizak aldarean** (4); **ere zazpi aldare** (4); **erre oparien aldare** (5); **erre oparien aldarea** (7); **eta aldare** (35); **eta aldare aurrean** (5); **eta aldare gainean** (5); **eta aldarea** (16); **eta aldareak** (9); **eta aldarean** (10); **eta aldarean erreko** (6); **eta aldarearen** (14); **eta aldarearen artean** (4); **eta aldareko** (10); **eta aldarera** (6); **etxolaren eta aldarearen** (5); **ez aldare** (4); **gainerako odola aldare** (9); **haien aldareak** (5); **haizeari aldarea** (16); **haizeari aldarea eraiki** (16); **haren odolaz aldarea** (4); **intsentsu aldarea** (7); **ipar haizeari aldarea** (16); **jaunaren aldarea** (5); **odola aldare** (10); **odola aldare oinean** (4); **odolaz aldarea** (8); **odolaz aldarea zipriztinduko** (5); **oparien aldare** (5); **oparien aldarea** (7); **urrezko aldarea** (5); **zazpi aldare** (8); **zegoen aldarea** (4); **zen aldare** (9); **zen aldareko** (4); **zituen aldare** (6); **zituzten aldare** (4); **zuen aldare** (4); **zuen aldarea** (6)

---

aldareratu, aldarera(tu), aldareratzen *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)* **1** da *ad* aldarera eraman, aldarera joan.

Baina apezak **aldareratzean**, apez mitradunik ez! ETC-literatura, saiakera

Baiona Sanandresko apezak, emazteak, dibortziatuak eta homosexualak bekatoros gisa aurkezten dituen Alliet apezpikuaren zaindaritza pretorianokoak, meza denboran laguntzen dabiltzan neskatoei **aldareratzea** debekatu die. ETC-prentsa

2 irud/hed

Hain zuzen ere, idazlea mitifikatu eta **aldareratzen** duten aipuak asko dira, honako hauen estiloan. ETC-prentsa

Non ote daude duela ehunen bat urte Pedro Mª Otañok **aldareratutako** Zizurkilgo Errekalde jaiotetxaurreko intxaurrondoaren (Juglans regia) itzala eta Argentinako panpan herriminez laztantzen zuen onbu (Phytolacca dioica) haren azala? ETC-prentsa

Eta, zer esanik ez, hedabideen egitura osoa, bere kultur kazetari, tertuliakide eta musika kritikariekin, lumak koipeztatuta, euskal eszenan arrakala bat irekitzeko gai zen hurrengoa **aldareratzeko** prest. ETC-prentsa

Gaurko honetan hitz-multzotxo bat hainbeste eman digun poetari, gehi gogoetaxka orokorrago bat **aldareratzen** ditugun heroi horietaz eta zehatzago **aldareratzen** ditugun arte pertsonak baino ez ziren horiei **aldareratzean** bizkarreratzen diegun zamaz, alegia, geure espektatibak betetzearena, geure bertsio hobeago, ausartago, ederrago bat gorpuztearena, sarritan geuk egokitu dizkiegun printzipio batzuei irmoki eutsi beharrarena. ETC-prentsa

3 (era burutua izenondo gisa)

Zailagoa da jakitea COPEko Nafarroako kazetariek zer dioten beren etxeko ahots **aldareratuak** albistegiak aurkezteko darabilen kazetaritza motaren gainean. ETC-prentsa

---

aldaretxo *iz adkor* aldare txikia.

Amarekiko lotura estua izan du beti, eta gol guztiak berari eskaintzen dizkio: "Oso fededuna da, nire partida guztiak ikusten ditu, eta etxean **aldaretxo** bat dauka jarrita kandelekin eta nire argazkiarekin". Berria - Kirola

Arbolapean ezarritako **aldaretxoan** , Ama Birjina Orbangabearen imajina bat zegoen. Txillardegi

Huck eta Tomen urtzeak, egia esan, fedearen susperraldia ekarri zuen, jende gehiago biltzen zen eguneroko arrosariora, gizonezkoak tartean, dozena bat kandela azaltzen ziren pizturik goizero Santa Faustinaren odol ustelgaitzaren **aldaretxoan** . Koldo Izagirre

Ez hotz ez bero utzi ninduela, horixe zen, ordea, nik Coppolaren filmaz gogoratzen nuen gauza ia bakarra, baina ez nion deus esan, bere gurtugai kutunenen **aldaretxoan** baitzeukan Drakulari buruzko guztia, Coppolaren filma ere barne. Anjel Lertxundi

---

aldaro *(orobat **aldero**) iz* zutik ondo ezin egon denak aldamenka egiten duen pauso eragabea. ik **balantza 7**.

Ordu erdi garrenean termometroa higitzen hasi zen, zegokionez: altzairu dirdirarazizko orratza, koadrante horailaren gainean bare beltz baten gisa **aldaro** eginez, 95°an geratu zen. Juan Garzia

---

aldaroka *(orobat **alderoka**)* **1** *adlag* aldaro eginez, balantzaka, zabuka, zealdoka.

Aldaroka (barkua itsasoan barrena bezala balantzan) eta zeharka begira. Anton Garikano

Halako batean, soka batetik zintzilik **aldaroka** mugitzen zen argiontzi baten argitan, bi gizon ikusi zituen fusilez armatuak. Koro Navarro

Aldaroka , Baldwin hormarantz abiatu zen. Lopez de Arana

Jira-biraka hasi zitzaion gela, zanbuluka mahaiak, **aldaroka** funtzionarioak, eta kordea galtzeko zorian egon zen lipar batez. Jose Morales

Aurpegia neskaren kolpetatik babestuz, atzera joan zen gizona **aldaroka** . Koro Navarro

Jauna, zaldun horren irudikabideak ez du erturarik nozitzen zure ahoan; nahiz badakidan noski haren dohainak atalez atal emateak oroimenaren aritmetika aztoratuko lukeela, eta, halarik ere, **aldaroka** jardutea baino ez litzatekeela, haren ibili zoliaren aldean. Juan Garzia

Kafera ematen zuen leihoaren arteketatik begira egon zen, zutik, zelatan, mutila noiz etorriko; **aldaroka** etortzen ikusi zuen, eta atzera ikusi zuen, gauerdi inguruan, senarraren laguntzarekin, Gurija kalerantz. Patxi Zubizarreta

Tabernako sarreraraino **aldaroka** iritsirik, atalasean gelditu zen. Patxi Zubizarreta

Etxeen artean nabil **aldaroka** , banaiz, existitzen naiz, pentsatzen dut, beraz **aldaroka** nabil. Monika Etxebarria

Baina indar bat zegoen han lanean; erabat jakinaren gainean ari ez zen zerbait; **alderoka** ibili eta zeharka begiratzen zuen zerbait. Anton Garikano

Bolantea belaunei buruz erdi-erdian edukitzeko premia, berriz, ia frenetiko bihurtu zitzaion: etengabe "orekatu" beharra zeukan, automobila **alderoka** pistan barrena zihoalarik, hari alde batera eta bestera eragin beharra. Xabier Olarra

Nekearen nekez, **alderoka** dabiltza idi etsiak. Joxerra Garzia

Senarrak, elizako aitorlekura sartu eta bertan husten zuen sarritan ostatuan erositako ardo botila, nigana **alderoka** itzuli aurretik. Harkaitz Cano

Aizkorakada bat garondoan aski eta sobera izan zuen **alderoka** hasi eta lurrera erortzeko, baina erortzean eskua ireki zuen eta airean distira ikusi nuen. Juan Garzia

Nik bisagretatik askatzear zeuden ate eta leiho erorien heldulekuei ematen nien eskua, eskonbroen atariko ate-leihoak bizirik baleude bezala besarkatzen nituen, atexka apurtuak agurtzen nituen, muin ematen nien **alderoka** eroritako habe kixkaliei. Harkaitz Cano

Liluraturik zihoan, xarmaturik, zentzuak hordi, eta bien bitartean bihotza, odola zein pentsamenduak **aldaroka** zebilzkion. Patxi Zubizarreta

---

aldarotu , aldarotu, aldarotzen *(corpusean **alderotu** soilik)* **1** da *ad* balantzatu, balantza egin.

Penagarria da, hala ere, kaira sartzen den itsasontzi hori zulaturik eta **alderoturik** datorrela ikustea, hondora joateko zorian. Juan Kruz Igerabide

2 (era burutua izenondo gisa)

Fikzioa erreibindikatzeko aitzakiaz, konpromezuaren aurkako aseptikotasun **alderotu** halako bat estaltzen duen kritikak literaturgintza biografikoegiaren leloarekin gaiztatu zuen Leviri buruzko iritzi mediatikoa. Juan Garzia

---

aldarri **1** *iz* oihua, eskuarki zerbait aditzera ematekoa, adierazpen ozena.

Ez zen etsaiaren arrastorik ikusten, eta ezta **aldarri** edo oihurik entzuten ere. Agustin Otsoa

Joan umeengana, hemen oihu, hor txalo, **aldarri** eta adar-hots. Xabier Mendiguren Elizegi

Auditorioko hotsa **aldarri** bihurtu zela. Irene Aldasoro

Abisu garbi batekin amaitu dut **aldarria** : [...]. Anjel Lertxundi

Emakumeen eskubideen **aldarria** Kabulgo batzarrean. Berria - Mundua

Freskagarrien eta otartekoen **aldarria** egiten zuen mutil ilegorri mantal zuri batez jantzia. Anjel Lertxundi

Peru Abarka, bada, jarrera berri baten adierazpidea dugu: egia da gizabanakoaren eta herrien askatasunaren **aldarria** dakarrela berarekin, baina berarekin dakar, baita ere, kostunbrismoa. Anjel Lertxundi

Pentsaezina da horrelako **aldarria** XVIII. mende aurreko Euskal Herrian: zazpi herrialdeen batasuna eta Euskal Herriaren beregaintasuna eskatzen duena. Koldo Zuazo

Euskal presoak Euskal Herriratzeko **aldarriari** muzin egiten jarraitzen dute. Berria - Euskal Herria

Karelen artean dena zela anabasa,dena birao eta agindu, dena **aldarri** eta izerdi, eta tarteka irainak eta ukabilak airean gurutzatzen zirela, guk marinelok batetik eta artilleriakoek bestetik elkarri oztopo eta eragozpen egiten baikenion. Edorta Jimenez

Besteek bat egin arte itxaron, eta **aldarri** batean esan zuen: [...]. Josu Landa

Handik hiru egunera, funtzionarioak kanpamentuan barrena ibili ziren **aldarri** hau egiten: [...]. Jose Antonio Mujika

Duintasun eta profesionaltasun hori du **aldarri** oraindik ere. Ana Urkiza

Baina, **aldarriak aldarri** , Euskal Herriko instituzio batzuek beste bide batetik joko dutela dirudi. Berria - Gaiak

"Sakrifizioetan berdintasuna" **aldarri** , Rick Wagoner General Motorseko presidenteak aurtengo soldata erdira jaitsi du, eta ez du iazko ekitaldiagatik aparteko saririk jasoko. Berria - Ekonomia

Lan ituna **aldarri** , hiru egunetan greba egingo dute Cadaguako langileek. Berria - Ekonomia

Herriz herri **aldarri** bera. Berria - Euskal Herria

Borreroak kondenatuek oihukatzen dituzten **aldarri** guztiak aktan jasotzen ditu, hoben egin duten ala ez delibera dezaten. Karlos Linazasoro

Seguru asko, **aldarriaren** aldeko sinadurak biltzeko baimena emanda, literatur lantegiaren kontuaz ahaztuko naizelakoan. Anjel Lertxundi

Ozen irakurtzen du, bere **aldarriak** botatzen ari den heraldoa bailitzan. Jon Alonso

Gaur egun zapatismoaren **aldarriak** mundu osoan dira ezagunak. Txema Ramirez de la Piscina

Gutxi batzuek baino ez zuten jarraitzen "ez dira pasatuko" **aldarriarekin** tematurik, zapalgailu zilindroa gainetik pasatua zitzaiela jabetu ere gabe. Juan Kruz Igerabide

Artean "Ihes egin dute!" **aldarriaren** azken bibrazioak erabat desagerturik ez zeudelarik, laguntzaileetako batek hatzaz seinalatu zuen ni nengoen aldera. Jon Alonso

Eta azpian, letra gorriz, **aldarria** : Trafikanteak hormara! Anjel Lertxundi

Bioaniztasunaren **aldarria** egin du FAOk, baina ez du aipatu Brasilek soja transgenikoa ereiteari emaniko baimena. Berria - Gaiak

Harro eta ozen egin zuen **aldarria** . Harkaitz Cano

[ik beherago 7]. *Askoren artean*

Miarritzeko Euskal jaiarekin bat eginez, Ipar Euskal Herriko pilotariek ere Euskal Herriko selekzioarekin aritzeko duten eskubidearen **aldarria** egingo dute antolatzaileek. Berria - Kirola

CPE atzera bota edo ez, sokatiran dabiltza ikasleak eta gobernua, eta gazteen abesti eta **aldarriek** gero eta kutsu politikoagoa hartu dute. Berria - Ekonomia

Militante ohia eta egungoa ere, maiatz frantziarraren **aldarriek** bizirik dirautela uste baitu. Berria - Kultura

Hori guztia dela eta, Elkartzenek eutsi egin dio bost puntuko **aldarrien** taulari. Berria - Euskal Herria

Atzo, baina, **aldarrietan** bat egin zuten langileek. Berria - Ekonomia

Kartzela osoa, egia esan, euskal preso politikoon alde zegoen, inoiz baino fermuago nabari zen espetxeratuen arteko elkartasun ikusezina, zigor ziegetakoek gauean egiten zituzten **aldarrietan** ekonomatokoek emoten zizkiguten albisteetan kartzelarien zurruntasun urdurian. Koldo Izagirre

2 (izenondoekin)

Laster iritsi zitzaien **aldarri** handia kanpoko zirkuluetatik gora zihoazen kaleetatik, bai eta hamaika gora eta biba ere. Agustin Otsoa

Gobernuak denbora irabazi nahi duela uste dut, egoerak gainbehera egin eta iritzi publikoak **aldarri** nagusia ahaztuko duelakoan. Berria - Ekonomia

."Liburua trazu lodiaren aurkako **aldarri** ozena da", Garroren ustez. Berria - Kultura

Baina gero, Benegoitia arnasberritzea lortu dutenean, bi begiraleen jokabidea gaitzetsi du **aldarri** sentikor baten bidez. Anjel Lertxundi

Beste mundu bat posible da, horixe da **aldarri** idealista zaharberritua. Iñaki Heras

Agian horregatik, bere obra ezagutzen duenak ikara txiki bat sentitzen du gizateriaren gainean azken garaiotan egin dituen **aldarri** ezkorrak entzuten dituenean. Jon Alonso

Heriotza-zigorraren eta Errusiako erregimen gupidagabearen aurkako **aldarri** zorrotza da. Jose Morales

Gurean, berriz, apenas pasatu ginen **aldarri** hutsetik. Joxerra Garzia

Marx eta Engels-ek hala diote, esaterako, bere testurik ezagunenean, hots, Alderdi Komunistaren Manifestua izeneko **aldarri** famatuan: [...]. Iñaki Heras

Mem Ramiresek, bere aldetik, eta uste izatekoa da gainerako kanpamentuetan ere diskurtsoa antzekoa izango zela, **aldarri** abertzale sutsuenak erabili zituen. Jon Alonso

Istiluok gertatu aurretik **aldarri** politikoak entzun ziren manifestazioetan: [...]. Berria - Ekonomia

Sozialismoaren **aldarri** moralak zapalkuntzaren kontra eta zanpatuen alde egiten du. Askoren artean

Ez die erantzuten herri honek dituen eskubideen aldeko **aldarri** legitimoei, ez eta gizartearen gehiengoaren borondateari ere. Berria - Euskal Herria

Hasierak, **aldarri** poetiko baten ezaugarri guztiak ditu: [...]. Iñigo Aranbarri

Gandalfek Ate erdi irekitik begiratu eta borrokaren **aldarri** hazkorra zelaien jabe zela entzun zuen. Agustin Otsoa

Burubide goikoagoak dituzte gidari horrelako grinek, eta badago haiengan halako **aldarri** etengabe bat, bizitza osoan isiltzen ez dena. Jose Morales

Baina **aldarri** eternal hori ez duk haizu haragi-odolezko belarrientzat. Juan Garzia

-Ontziak ura zakarrek, ura zakarrek ontziak! - **aldarri** etsiak aditu ziren, gain-bizkarraren behean, hots, sotoetan. Edorta Jimenez

Zuzendari txit agurgarriak dutxa bero baten mesede egin digu, bere **aldarri** hunkigarria irakurri eta gero, gure animoak bare daitezen. Anjel Lertxundi

Korridorera heldu eta berehala **aldarri** betean hasi zen Mentxu, "Antonia! Josu Landa

3 (izenlagunekin)

'Torturaren aurkako nazioarteko **aldarria** '. Berria - Euskal Herria

Gobernuak zapuztu zuen gerrari buruzko herritarren oroimena, komenientziazko **aldarri** eta kontsignekin estaliz. Pako Aristi

Eaeoe! -edo halako **aldarri** bat egin zuten, behin txanela uraren gainean harro utzi zutenean. Edorta Jimenez

-Eup! -pozezko **aldarri** batean erantzun zuten ontziko denek. Edorta Jimenez

Eskubide zibil eta politikoen aldeko **aldarria** Bizkaiko Durango herrian bukatuko da, heldu den abenduaren 12an. Berria - Harian

Azkaineko (Lapurdi) plaza espekulazioaren kontrako **aldarri** bihurtu du Batasunak. Berria - Euskal Herria

Europako Itunaren kontrako **aldarriak** milaka lagun batu ditu. Berria - Harian

Berrogei urte pasatu dira *Quousque tandem* argitaratu zenetik, eta beste erdioriotar batek, Jon Sarasuak, bizi dugun hau golde-aro dugula gogorazi berri digu, herri-minez urratutako **aldarri** ezinago ederrean. Joxerra Garzia

Informazioz osatua dator koadernotxoa: urtean zehar egin diren ekitaldiak, zirkuituaren nondik norakoak, egitaraua, kantuaren letra, grabazioaren irudiak, jakineko etxeen publizitatea betiko **aldarriekin** , gora bideak, gora euskara eta gora gorakoak... ohiko sustatze orri euskaltzaleak. Iñigo Aranbarri

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hileko azken ostiralak **aldarri** eguna dira 120 bat herritan duela ia lau urtetik. Berria - Harian

Joan den urteetako ikurrina kopuru beretsua, **aldarri** pankartaren bat, presoen euskalherriratzea eta amnistia eskatzen duten oihalak. Berria - Kirola

Jaimeri, nire lehengusuari, bota diodan **aldarri** itxurako hitzaldiaren ondoren, inolako mugarik eta baldintzarik gabe neure buruari erantzun behar diodan galdera bat: [...]. Anjel Lertxundi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Teresak egin dezakeen hilezkortasun- **aldarri** bakarra, gauetako bakardadearen kontsolagarri, ohe azpian gordetzen duen kutxa gutun eta oroigarriz betea da.Bele karrankariak mendeku- **aldarri** . Oskar Arana

Pasteur-en lanak banan-banan aipatzea garaipen- **aldarri** andana bat irakurtzea da. Juan Garzia

Diskoa adierazpen askatasunaren aldeko objektu, ekimen eta egitasmoa da; askatasun **aldarria** . Berria - Kultura

6 irud/hed

Tailerretako sirenak orroka hasi dituk, zeinek **aldarri** handiagoa egingo. Pedro Alberdi

7 ***aldarri egin*** oihu egin; aldarrikatu. ik **proklamatu**.

Bajuxeagotik berba egiteko oharra egin zion aurpegiaz, eta etsipen imintzioa egin zuen gizonak, Mentxu bera izan baitzen **aldarri egin** zuen lehenena. Josu Landa

-Upel hau ez zagok ondo! - **egin** nuen **aldarri** . Edorta Jimenez

Haren gainera makurtzen dira, hodei garden batean bildu eta gora altxatzen dute, paseko hegazti lasterrak hegan ibiltzen diren lekuraino, eta **aldarri egiten** dute, heraldoen antzera. Jose Morales

Apaizek errazago esekitzen dute sotana beren integrismoa baino, eta orain "festa bai, borroka ere bai!" **egiten** digute **aldarri** . Anjel Lertxundi

Harrabots etengabe eta nahasia entzuten zen: tranbia baten karranka hotsak, bozina soinu zoliak, salgaien **aldarri egiten** zebiltzan saltzaileak, autoen burrunba eta gizakien marmarra. Patxi Zubizarreta

"Bai", **egin** dute denek batera **aldarri** , ondoren datorren show-ari igarriz batzuek, zer datorkeen jakiteko irrikaz besteek. Xabier Mendiguren Elizegi

Jainkoari otoika **eginik aldarri**. Koldo Izagirre

Hark ere bandera beltza ezarri hondartzan eta **aldarri egin** zuen herria txikituko zuela, ez zela inor bizirik geratuko, ez haur ez emakume, ez abere ez agure, armaduradun kapitainarekin borroka egin ondoren lurra jaten ez bazuen behintzat. Felipe Juaristi

-Han, han! - **aldarri egin** zuen norbaitek Ánimas karrakan. Edorta Jimenez

'Aireplanoak!' **aldarri egiten** zuen jendeak arineketan, eztandarik entzun orduko oraindik. Joseba Sarrionandia

Zerk behartzen du berez baketsua den lagun bat "aski da!" **aldarri egin** eta fusila hartzera? Markos Zapiain

Eta 'Gora Euzkadi!' **aldarri egin** zuten eztarri denek batean, uneko hunkidura biribilduz. Edorta Jimenez

-Kanoiak prest - **aldarri egin** zien gizonei halako batean. Edorta Jimenez

Ukabilkada bat jo nuen mahai gainean, **aldarri egin** bidenabar: "Txakolina maite ez duena putakume bat da!". Aingeru Epaltza

Hortaz, ezpata altxatu eta **aldarri egin** zuen: [...]. Joanes Urkixo

Stalinen garai gogorrenean ere, Gulagen idazle asko kontsumitzen ziren negu gorrian, Sartre Sobiet Batasunera joan zen, eta, itzuleran, **aldarri egin** zuen: "Sobiet Batasunean kritikatzeko askatasuna erabatekoa da". Berria - Harian

Eguraldi kaskarrari aurre egin, eta Euskal Herriak herri dantzaria izaten jarraitu nahi duela **aldarri egin** zuten Bergarara batutako ehunka lagunek. Berria - Kultura

Zer dugu? -bota zidan niri, eta gero **aldarri egin** zion zerbitzariari- Beste bi. Edorta Jimenez

· Atera zizkidaten argazki batzuk, Ernioko erromeriak politizatzen ibili ginenekoak bi, 1930eko irailean; bestea Eibarren errepublika **aldarri egin** zuten egunean aterea da, Anbrosio eta biok ikurrinak eta gorriak ipintzen ari garela Gaztelu plazako kioskoaren buelta osoan. Koldo Izagirre

-Zoazte kanpamentuan barrena eta **egin aldarri** hau herriari: [...]. Jose Antonio Mujika

Horixe **egin** gura nuen **aldarri** urkamendian. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldarri bat** (8); **aldarri batean** (8); **aldarri bera** (4); **aldarri egin** (62); **aldarri egin nion** (4); **aldarri egin zuen** (28); **aldarri egiten** (11); **aldarri eta** (9); **aldarri hau** (4); **aldarri politikoak** (4); **aldarria bere** (5); **aldarria da** (7); **aldarria egin** (32); **aldarria egin du** (6); **aldarria egin zuen** (9); **aldarria egin zuten** (6); **aldarria egingo** (7); **aldarria egingo dute** (4); **aldarria egiteko** (6); **aldarria egiten** (9); **aldarria ere** (4); **aldarriak entzun** (4); **aldarriak eta** (6); **aldarriekin bat** (4); **aldeko aldarri** (5); **aldeko aldarria** (54); **aldeko aldarria egin** (15); **aldeko aldarria egiteko** (4); **aldeko aldarria egiten** (5); **aldeko aldarriak** (5); **aurkako aldarria** (5); **baten aldarria** (5); **du aldarri** (6); **eskubideen aldarria** (4); **eskubideen aldeko aldarria** (4); **eta aldarri** (15); **eta aldarri egin** (5); **eta aldarria** (5); **euren aldarria** (5); **independentziaren aldarria** (5); **kontrako aldarri** (4); **kontrako aldarria** (7); **kontrako aldarriak** (4); **nuen aldarri** (4); **zuen aldarri** (4)

---

aldarrika 1 *adlag* aldarri eginez.

Europa eta Asiako zoko guztietatik etorritako gizon-emakumeak, berriketan, eztabaidan, **aldarrika**, tratuan. Karlos Zabala

Palermo hiritik gertu dagoen sumendia borborka hasi zen, herensuge baten antzera, Siziliako lur guztiak kiskaliko zituela **aldarrika**, ez zuela belar izpirik barkatuko, baldin eta norbait borrokan nagusitzen ez bazitzaion. Felipe Juaristi

Oraino neure kolera **aldarrika** kanporatzeko aldartean, hiru-lau arnasaldiren denbora behar izan nuen Potzoloren hitzez jabetzeko. Aingeru Epaltza

Oinak hareatzan sendo jarriak zituelarik, **aldarrika** hasi zen bularra ezpataz joz. Felipe Juaristi

Emakumezko gazte batek **aldarrika** ekin zion Gure Gizonari. Edorta Jimenez

Tabernariak **aldarrika** jakinarazi zien berri ona bertan ziren guztiei. Berria - Euskal Herria

Joan ziren harengana eta muino gainean aurkitu zuten itsasoari begira, bakea **aldarrika**. Felipe Juaristi

Jendetza handia zen Iraultzaren Plazan, Sanson eta Gillotin maisu txit prestuen eskolan, heriotza **aldarrika**. Felipe Juaristi

-Lau nagusi eta hiru ume -Mikelek **aldarrika**, besteak entzungo bazion. Pedro Alberdi

Kaleetan **aldarrika** dabil Jakinduria, ibilbideetan oihuka. Elizen arteko biblia

1978an, polizia espainolak German hil zueneko San Fermin haietan ausartu nintzen kalera ateratzen, neure amorrazioa harrika eta **aldarrika** adieraztera, eta barrikadan neure aldamenean ikusi nituen ordura arte beti mesfidantzaz begiratu izan nien auzokoak. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izen gisa) ik **aldarrikapen**.

Jendetasunez ahantzi eta gure eskubideen **aldarrika** zakarrari lotu nintzaion, boza jatetxeko bezeroek aditzeko maneran goitituz. apezpikuei eskuetan muin ematen zien, belaunak besarkatzen zizkien; **aldarrika** handien oihartzunak ziren nonahi. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldarrika hasi** (6); **eta aldarrika** (6)

---

aldarrikaldi *iz* zerbait aldarrikatzen den aldia.

Haren idazketa, edo idatzizko **aldarrikaldia**, profeta deabru-suhar batena zen bete-betean; pentsa zitekeen diabetikoaren zein sanoaren baitako glukosaren metabolismoa Yehovak Sinain berari errebelaturiko kontua ote zen, edo eta Wotanek Walhallan. Juan Garzia

---

aldarrikapen 1 *iz* aldarrikatzea, aldarri egitea.

Euskal herriak dituen **aldarrikapen**, erreibindikazio eta nahiak. Berria - Kirola

Erakusketa kolektibo baten bitartez plazaratu dute **aldarrikapen** hori 19 sortzaile plastikok, Iruñeko Moises Perez Albeniz aretoan. Berria - Kultura

Aldarrikapen horren berrogeita hamargarren urteurrena ospatu zen egunean, hain zuzen, "Deklarazioaren aita" izan zenari, René Cassin gure herritar handiari, eman ziolarik Bakearen Saria, Aase Lioanes andereak, Nobel batzordearen buruak erran zuen: [...]. Piarres Xarriton

Aldarrikapen bat oihukatu dena ere karrikan, manifestaldi jendetsu baten karietarat. Herria

Dena den, zonbat **aldarrikapen** ez dira aspaldian oihukatzen funtsezko aintzinamendu handirik ardietsi gabe! Herria

Aldarrikapen batzu, denetan berak edo bertsuak: langabezia emendatu dela, irabaziak goititu behar litazkeela, 35 oreneko astea behar dela begiratu, Mendekoste astelehena bestaburu gisa atxiki, eta holako. Herria

Aldarrikapen hau politikoa da, baina ez du izan beharrik nahitaez, gu hemen eskatzen ari garena baita ereduzko diren unibertsitateetan egiten dena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Erronka egiten diat ea gauza haizen herriaren **aldarrikapen** hori geldiarazteko. Karlos Zabala

Guk aitzina nahi dugu egin, aurrera egin, / eta horrexegatik gaude hemen, / su-etenaren alde, / ETAren jarduera armatuaren aurrean / su-etena bihurtuta **aldarrikapen**. Txema Ramirez de la Piscina

2 (izenondoekin)

Jendea azkarki bildu da, denek beren gain hartuz aintzinetik finkatu lau **aldarrikapen** nagusiak: euskararen ofizialtasuna frantsesaren aldean, euskal-departamendua, laborantxa ganbara eta unibertsitate erabakitzailea edo berezkoa. Herria

Aldarrikapen zehatzak egin zituzten: hiru urterako lan hitzarmena, lanorduak gutxitzea eta soldata aurten %50 igotzea eta %30 datozen bi ekitaldietan. Berria - Ekonomia

Aldeak alde, kezka edo **aldarrikapen** komunik ikusten duzue gazte erakundeen artean? Berria - Euskal Herria

Parada hauta dela gure **aldarrikapen** premiatsu zonbaiten egundainokotan entzun-arazteko, euskaldungoaren onetan, gure lurraldeño hunen geroa gogoan. Herria

Salamancako unibertsitatean ikasten ari zela, antzeko sentsazioa izaten zuen Del Vallek gazte komunisten **aldarrikapen** sutsuak eta Falangekoen hitzaldi hanpatuak entzuten zituenean. Alberto Ladron Arana

Inork ez bezala erakutsi baitzigun Satrustegik, **aldarrikapen** zaratatsurik gabe, euskara dela gure mundua, euskara dela gure nortasunaren giltza, euskarak egiten gaituela munduan nor. Joxerra Garzia

Ez zegoen **aldarrikapen** zalapartatsurik haren gutunetan. Jon Muñoz

Abertzaletasun horren ondorio zuzena da liburuaren beste ardatz nagusietako bat: Ekialdeko Europako **aldarrikapen** nazionalei ematen dien arreta. Berria - Kultura

Bizitzan izaten dira aldi batzuk, behar pertsonalak eta **aldarrikapen** sozialak bat egiten dutenak, eta halako zerbait gertatu zitzaigun guri etxebizitzaren gaiarekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Une hartan alderdiek eta herri mugimenduak elkar sostengatu izan balute, zenbait aldarrikapenek arrakasta izan zezaketen, autodeterminazio eskubidearen **aldarrikapen** instituzionala kasu. Berria - Euskal Herria

Oinarrizko betebehar eta eskubideen kode propioa izateko **aldarrikapen** historikoa lortzeko bidean dira azkenik langile autonomoak. Berria - Ekonomia

Alde batetik burgesia bat, lurraren jabea bihurtu dena eta bere **aldarrikapen** ekonomikoak eta politikoak fisiokraten ahotsetik adierazten dituena eta, bestetik, burgesia merkataria utilitaristen bidez neurri protekzionistak edo liberalak eskatzen zituena. Xabier Arregi

Diru hori **aldarrikapen** legitimoak baretzeko erabili izan dute. Berria - Euskal Herria

Aldarrikapen ekologistaren bat izanen ote zen hura? Karlos Linazasoro

Eskubide gehienak formalki onartuta ditugula, borroka feministaren helburuak **aldarrikapen** hutsa ez diren bideetatik lantzen ari gara. Berria - Euskal Herria

Garrantsitsua da argibide batzuk ematea, hots, espainiar nazionalismoa zorrotz kritikatzea, **aldarrikapen** sentimental hutsetatik irten nahi badugu bederen. Berria - Kultura

Oso noizean behin, neskameak liburuen hautsa garbitzea beharrezkoa zelako **aldarrikapen** solemnea egiten zion. Jon Alonso

Ildo horretatik, hona hemen, berdintasun ekonomikoaren aldeko justizia sozialistaren **aldarrikapen** ezaguna: "Nork bere gaitasunaren arabera, nori bere beharrizanen arabera". Iñaki Heras

Bi urte geroago, azken zoriontsu batez negar-herri hau aberri dohatsuaz trukatu zuenean, gertakari paregabe honen **aldarrikapen** harrigarria gizon-emakumeen belarrietara iritsi zen eta jendea pilaka bildu zen Jaunaren izenari aintzaka eta goraka. Askoren artean

Etorkizuneko medikuntza, beraz, eta aipatu **aldarrikapen** utopiko hori gorabehera, jada esku pribatuetan dagoela esan dezakegu. Berria - Gaiak

Zenbait **aldarrikapen** defendagarriak diren arren, ikusi behar da praktikara eramatea posible den ala ez. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iraken auzo hurbilenak diren sei herrialdeetako ordezkariak atzo bildu ostean, munduko diplomazia buruak **aldarrikapen** agiri bateratua hitzartzen saiatuko dira. Berria - Mundua

Aldarrikapen fasea bukatu da. Berria - Harian

Basauriko udal eraikinetako garbitzaileek Ajuria Enean amaitu zuten atzo **aldarrikapen** ibilaldia. Berria - Ekonomia

Sarraskiaren urtemuga **aldarrikapen** egun bihurtzea nahi du LABek. Berria - Ekonomia

Euskal Herrian gizarte eskubideen egoera larria salatzeko bihartik aurrera **aldarrikapen** astea deitu du Elkartzen-ek. Berria - Euskal Herria

Aldarrikapen kutsu handia zuten garai bateko emakumeen nobelek, ez nituen batere solte ikusten. Ana Urkiza

Gustatzen zaiola **aldarrikapen**-tonu hori, "itxaropen horrexek gartzen gaitu" eta abar, baina arraroa egiten zaiola. Iñaki Iñurrieta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aldez bakarrik geratua nintzen gogoaserik neure irakurle alemanen gutunekin: ez ninduten betetzen damu- eta elkartasun-**aldarrikapen** prestu eta orokor haiek, sekula ikusi gabeko jendeak eginak, ez bainuen ezagutzen haien beste aurpegia, eta ez baitziren ziur aski sentimentalki baino inplikaturik egongo. Juan Garzia

Gogoan dut, klase batean, Jon Baltzak eta biok protestazko manifestu-**aldarrikapen** bat idatzi genuela, Gabriel Aresti zenaren baimenez. Xabier Mendiguren Elizegi

Belaunaldi **aldarrikapen** bat. Berria - Kultura

5 ***aldarrikapen burujabe*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Euskal Errepublika Euskal Herriak historian zehar izandako izenetako bat da, batez ere XIX. eta XX. mendeetan zehar, estatu gisako **aldarrikapen burujabeak** izan dituenean. Era berean Euskal independentismoaren helburu politiko nagusia da. ETC-entziklopedia

6 ***aldebakarreko independentzia aldarrikapen*** *(corpusean ez dago; ETCn **54** agerraldi)*

Aldebakarreko Independentzia Aldarrikapena (AIA) menpeko lurralde batek, estatu berri bat eratzeko asmoz, estatu jabearen oniritzik gabe egiten duen independentzia aldarrikapena da. Terminoa 1965ean erabili zen aurreneko aldiz, Rhodesiak Erresuma Batuarekiko independentzia aldarrikatu zuenean. ETC-entziklopedia

Kosovok **aldebakarreko independentzia aldarrikapena** egin eta egun gutxira eskatu zuten euren independentzia nahiak ere aintzat hartu zitzaten. ETC-prentsa

Errusiak ere ez du onartu Kosovok egindako **aldebakarreko independentzia aldarrikapena**. ETC-prentsa

Baina besterik ez denean, esanda dauka Hagak: **Aldebakarreko Independentzia Aldarrikapenak** ez daude debekatuta nazioarteko legedian. ETC-prentsa

Erakunde propio bat sortu behar dugu, **aldebakarreko independentzia aldarrikapena** egingo duena. ETC-prentsa

Ez da nahi luketen bidea, baina behar bada hori baino ez zaie geldituko: Espainiako erasoaren aurrean, UDIa, **aldebakarreko independentzia aldarrikapena**. ETC-prentsa

Juan Jose Ibarretxek ere aipatu du: "Erabakitzeko eskubidea onartu ezean, **aldebakarreko independentzia aldarrikapenak** izango dira Euskal Herrian eta Katalunian". ETC-prentsa

Halere, XX. eta XXI. mendeko historian ohikoena **aldebakarreko independentzia aldarrikapena** izan da (parlamentu ez demokratikoek ere bai). ETC-prentsa

Uneren batean Kataluniako Legebiltzarrean **aldebakarreko independentzia aldarrikapena** botatzen bada, litekeena da oraingo 72 diputatuen gehiengoa baino zabalago batek ematea sostengua. ETC-prentsa

Horrek bultzatu zuen 155. artikuluaren ezarpena bizkortzera: baita urriaren 27ko **aldebakarreko independentzia aldarrikapenak** ere. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abertzaleen aldarrikapenak (4); **aldarrikapen astea** (8); **aldarrikapen bat** (19); **aldarrikapen bat baino** (4); **aldarrikapen baten** (4); **aldarrikapen batzu** (8); **aldarrikapen egin** (6); **aldarrikapen eguna** (8); **aldarrikapen eta** (14); **aldarrikapen guztiak** (4); **aldarrikapen hau** (6); **aldarrikapen historikoa** (4); **aldarrikapen hori** (27); **aldarrikapen horiek** (14); **aldarrikapen horien** (8); **aldarrikapen horrek** (6); **aldarrikapen horrekin** (5); **aldarrikapen horren** (8); **aldarrikapen horri** (4); **aldarrikapen nagusi** (6); **aldarrikapen nagusia** (7); **aldarrikapen nagusiak** (14); **aldarrikapen politiko** (4); **aldarrikapen sozial** (4); **aldarrikapena da** (12); **aldarrikapena dela** (4); **aldarrikapena egin** (18); **aldarrikapena egin zuen** (6); **aldarrikapena egingo** (8); **aldarrikapena egiteko** (5); **aldarrikapena egiten** (6); **aldarrikapena ere** (4); **aldarrikapena eta** (10); **aldarrikapena ez** (8); **aldarrikapena ez da** (5); **aldarrikapena zen** (4); **aldarrikapenak aintzat** (5); **aldarrikapenak bat** (4); **aldarrikapenak egin** (5); **aldarrikapenak egiteko** (4); **aldarrikapenak egiten** (4); **aldarrikapenak entzun** (8); **aldarrikapenak ere** (6); **aldarrikapenak eta** (15); **aldarrikapenak ez** (6); **aldarrikapenak izan** (4); **aldarrikapenekin bat** (8); **aldarrikapenekin bat egin** (5); **aldarrikapenen artean** (7); **aldarrikapenen inguruan** (6); **aldeko aldarrikapen** (5); **aldeko aldarrikapena** (26); **aldeko aldarrikapenak** (11); **aspaldiko aldarrikapena** (4); **aurkako aldarrikapena** (5); **baina aldarrikapen** (4); **batera ren aldarrikapenak** (7); **bere aldarrikapen** (7); **bere aldarrikapenak** (7); **beren aldarrikapenak** (16); **bi aldarrikapen** (5); **dituen aldarrikapen** (4); **dut aldarrikapen** (4); **edo aldarrikapen** (5); **emakumeen aldarrikapenak** (4); **eta aldarrikapen** (31); **eta aldarrikapenak** (20); **eta aldarrikapenen** (9); **euren aldarrikapenak** (9); **gure aldarrikapenak** (6); **hainbat aldarrikapen** (5); **kontrako aldarrikapen** (5); **langileen aldarrikapenak** (8); **lau aldarrikapen** (13); **lau aldarrikapen nagusiak** (6); **lau aldarrikapenak** (4); **lau aldarrikapenei** (4); **lau aldarrikapenen** (4); **ren aldarrikapenak** (8); **ren lau aldarrikapenak** (4); **zenbait aldarrikapen** (4); **zuten aldarrikapen** (4)

---

aldarrikarazi, aldarrikaraz(i), aldarrikarazten du *ad* aldarrikatzera behartu.

Geroago, metaforaz, hotsak airean hedatzea esan gura izatera iragan zen, esaterako, **"Aldarrikarazi** zuen kanpalekuan"; Jainkoaren herriaren artean hedatzen entzuten dudan hotsa" (1 Sm 2,24). Xabier Kintana

Gero, hau **aldarrikarazi** zuen hirian: "Erregearen eta beronen gobernarien aginduz, gizaki eta abere, behi eta ardi, inork ez beza ezertxo ere dasta, ez bitez larra, ez bezate edan". Elizen arteko biblia

---

aldarrikari *iz* aldarrikatzen duen pertsona.

Fernando, zorgabetzeak dakarren pozaren **aldarrikaria** da: amezketarra izaki, eulia, eta euliak uda dakar. Markos Zapiain

Buila atera behar baduk, berriz, gurean antzezle askok legez, **aldarrikariari** esanaraztea neukan neure bertsook. Juan Garzia

Herioren **aldarrikari** zela, esan zien marinel izutiak lagun izutuei malkoak begietan. Felipe Juaristi

Aldarrikariek, misterioak ospatzean bezala, isiltasun hotsandikora deitu zuten. Juan Garzia

Nazioartean ezaguna egin zen euskalduntasunaren **aldarrikari** moduan. Askoren artean

---

aldarrikatu, aldarrika(tu), aldarrikatzen **1** du *ad* zerbaiten berri aldarrika eman, jendaurrean zerbait ageriki adierazi.

Orduan, Moisesek agindu hau **aldarrikatu** zuen kanpalekuan: "Ez gizonek, ez emakumeek, ez dezatela gehiago santutegirako eskaintzarik ekar". Elizen arteko biblia

Ni mezu hau **aldarrikatzen** ari nintzen bitartean, Pelatias, Benaiasen semea, hil egin zen. Elizen arteko biblia

Inperio Austrohungariarrak gerra **aldarrikatu** zion Serbiari, 1914ko uztailaren 28an. Pello Salaburu

II. Errepublika **aldarrikatzen** da Eibarren. Askoren artean

"Independentzia **aldarrikatzen** duten mugimenduak ez dira kriminalizatu behar. Berria - Euskal Herria

Bizitza osoa askatasuna **aldarrikatzen** ... eta orain hau, askatasuna etsai bilakaturik. Eider Rodriguez

Erregearen dekretua **aldarrikatu** zenean, neskatxa asko eraman zituzten Susa hirira, Hege emakumezainaren ardurapera. Jose Antonio Mujika

Vianako printze **aldarrikatu** zuten, nekez ikusiko bazuen ere Vianako herria. Aingeru Epaltza

Giza eskubideen aldeko iraultza hau ez da izan arrakastatsuena, eta batzuetan iduri luke 1948an munduko agintariek **aldarrikatu** zituzten giza eskubideak paperean idatzitako puntu batzuk besterik ez direla. Pello Salaburu

Parmako harri jasoaren gainean, non urteak danik podestateek populuari hitz egiten baitzioten, fede berria **aldarrikatu** zuen Dolcinok. Juan Garzia

Jaungoikoaren existentzia ez du Idazteunen autoritateak soilik **aldarrikatzen**; inguratzen gaituen eta geu barne hartzen gaituen izadiak ere **aldarrikatzen** du Egile bikaina, zeinak guri adimenaz eta arrazoimen naturalaz jantzi gintuen. Imanol Unzurrunzaga

Bakoitzak bere erara **aldarrikatzen** du bere nortasuna: [...]. Harkaitz Cano

Ama bakarrik ez naizela **aldarrikatzeko** beharrak bultzatu nau aurreko guztia idaztera. Arantxa Iturbe

Une hartatik aurrera, egunean hiru bider heraldoek Elessar Erregearen etorrera **aldarrikatu** zuten. Agustin Otsoa

Guk, beltzek eta indioek bezala, gure komunitatea **aldarrikatu** behar dugu. Pello Salaburu

Eskola publikoa euskaraz egitea **aldarrikatu** genuen, ez baikenuen onartzen euskaraz hazi nahi genituen umeek sos publikoaren ordainetan erdararen aukera bakarrik izatea. Pello Salaburu

Arrazoi hori dela medio, sortzeko eskubidea, eta sormena eta produkzioa generoaren arabera ez neurtzea **aldarrikatzen** du. Ana Urkiza

Amodioaren morboa goraldu eta **aldarrikatu** dutenak poetak izan baitira, Platon buru dutela erromantizismoarekin gailurra jo arte. Patziku Perurena

Hantxe, Ahaba ibaiaren ondoan, baraua **aldarrikatu** nuen, gure Jainkoaren aurrean geure buruak apaltzearren. Elizen arteko biblia

Kostatarraren barruan, berriz, Sarako hizkeraren gorentasuna **aldarrikatu** zuen Joanes Etxeberrik. Koldo Zuazo

Hiri, herrixka edo etxeetan sartzen zirenean, bakea **aldarrikatu** ohi zuten. Askoren artean

Haien jakinduriaz mintzatuko dira nazioak eta beraien gorespena **aldarrikatuko** herri-batzarrak. Elizen arteko biblia

-Zin egin edo ez, Jainko gizonak gara eta gure eliza-botoak beste edozeinenak bezain legezkoak dira -**aldarrikatu** zuen elizgizonak, sumindurik-. Elena Touyarou

Jaunaren izena **aldarrikatuko** dut: aitortu handi dela gure Jauna. Elizen arteko biblia

Goazen berriro Jaunaren mezua **aldarrikatu** genuen hiri haietara, senideak nola dauden ikustera. Elizen arteko biblia

Luteranismoak gizaki berria **aldarrikatzen** zuen. Askoren artean

Aldarrika ezazue baraualdi bat, eta eserarazi ezazue Nabot guztien aitzinean. Jose Antonio Mujika

Inork funtsaz ezin **aldarrika** dezakeenez gero kanpoko sentsuen gure errepresentazioen kausa transzendentalaz zerbait ezagutzen duela, orduan bere baieztapena erabat oinarrigabea da. Ibon Uribarri

Erreinuko ministrari, eskualdeburu, kontseilari eta gobernariek aho batez eskatzen dizute errege-agindu hau eman eta **aldarrika** dezazun: Errege jauna, hogeita hamar egun hauetan, zuri ez beste jainko nahiz gizonen bati otoitz egingo diona, jaurtiki dezatela lehoien zulora. Elizen arteko biblia

Teknologiaren garapena zerbait autonomotzat eta beharrezkotzat ulertzeari bukaera eman nahi zitzaion, teknologiaren izaera kontingentea **aldarrikatuz**. Askoren artean

Lautréamont, Nodier eta beraien sentsibilitateko idazle askok eraso egin zioten jarrera horri, eta plajioaren abantailak defenditu zituzten, hain zuzen ere testu-lapurreta zelako erromantikoek **aldarrikaturiko** orijinaltasunaren etsai bortitzena. Bernardo Atxaga

Txildeberto Austrasiako erregeak, Kolonian **aldarrikatutako** arau baten bidez, heriotza-zigorra ezarri zuen, baina ez hiltzailearen kontra, isuna ordaintzen ez zuenaren kontra baizik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aurrerago, lehen aipaturiko 8. artikuluan, zera azpimarratzen du, "inor ezin da zigortu, delitua egin baino lehenago ezarri eta **aldarrikatutako** legearen arabera ez bada". Juan Martin Elexpuru

Zotaltxiki inguratu zen kaleraino; eta segidan helarazi zigun eguneko albistea: Tolosako Udalak "Errepublika Federala" **aldarrikatu** berria zuela. Txillardegi

BG han egon balitz oraindik, hauxe **aldarrikatzen** entzungo zioten: "Entzun, entzun, hau definizio bat da: zenbaki aljebraiko esaten zaio ekuazio aljebraiko baten ebazpen den zenbakiari". Jon Muñoz

Eguzkiak **aldarrikatzen** du, agertzen denean, benetan miresgarria dela Goi-goikoak egindakoa. Elizen arteko biblia

Halatan bakarrik gertatuko zen bere Peru Abarka misiolari entziklopedistek **aldarrikatzen** zuten Basati Ona izateko duin. Anjel Lertxundi

Baina zuk **aldarrikatzen** dituzun izugarrikeria guztiak naturan badaude, zergatik dituzte aurka legeak? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nahiz eta, egia esan, Enniok berak ere bertso eternaletan **aldarrikatzen** duen badirela Akeronteko barrunbeak, nora ez den ez gure arimarik ez gorputzik sartzen, zurbiltasun bitxiko halako geriza batzuk baizik. Xabier Amuriza

Europako hainbat herrialdetan, mobilizazioak antolatu dituzte paperik gabeko etorkinen elkarteek, lan duina eta eskubideen aitortza eta duintasuna **aldarrikatzeko**. Berria - Euskal Herria

Orain, noiz nahi, jalgitzen da jendea karriketara zerbaiten **aldarrikatzeko**: diru beharra, zergen kontra, erretretak, eskualdekatzea eta abar. Herria

Lege zibila, **aldarrikatzeko** modu bikoitzaren arabera, bi eratakoa da: idatzia eta idatzi gabea. Esteban Antxustegi

"Doléances du Sexe de Saint-Jean-de Luz et Cibour au Roi" izeneko dokumentu batean, bi herri horietako andre euskaldun batzuek, 1789an, andreek boza emateko eskubidea **aldarrikatzen** zioten Luis XVI.ari. Pello Salaburu

Ez da izango, noski, Jonathan Swiftek Irlandako gosetearekin bukatzearren argitaratutako hura bezalakoa, zeinetan --gogoratzen bazarete- kanibalismoa **aldarrikatzen** zen; baina, horretara iritsi gabe, izango du nire honek ere bere ausardia. Bernardo Atxaga

Justizia Auzitegira zuzenean jotzeko aukera ere **aldarrikatzen** duzue. Berria - Euskal Herria

Jai Alairen aitzinean biltzen ziren partida egunetan, txandaka, beren eskakizunak **aldarrikatzen** zituen oihal aspalditik higatuaren gibelean. Xabier Montoia

Bizia zatiezina dela **aldarrikatzen** dutenen oihuak gorabehera, erredukzionismoa nagusitu da behin eta berriro. Juan Garzia

2 (adizlagun eta kidekoen eskuinean)

Mendeku-gogoak bultzaturik, ozen **aldarrikatu** zuen: [...]. Martin Anso

Orduan Jainkoaren batasunean sinesten dutenetakoa izanen zara, eta ez hori ahoz **aldarrikatzen** dutenetakoa, ideia hori irudikatu gabe, talde horretakoak hitz hauekin aipaturikook izanez: [....]. Xabier Kintana

Batek erdaraz **aldarrikatzen** duenean euskararen garrantzia, inoiz ere ahaleginik txikiena egin gabe berak edo bere seme-alabek euskara ikas dezaten, sinbolo gisa erabiltzen du euskara. Pello Salaburu

Zenbaitzuek hori argiro **aldarrikatzen** dute, esentziari gaineratzen zaizkion nozioak banan-banan aipatuz. Xabier Kintana

Biharamunean ofizialki **aldarrikatzen** dute poliziak (Lino Venturak) hil duela agintari komunista eta gero bere buruaz bertzerik egin duela. Herria

Erregeren estatu-politikako aginduetakoren batek aldrebeskeria nabarmenen bat eragiten zuenean, serioski **aldarrikatzen** zen Goi Kontseiluko zenbait kideri lepoa moztu zitzaiela, eta marmarrak isiltzen ziren. Xabier Olarra

Azpilikuetari jazza iruditzen zitzaion musika guztien gainetik zegoela, ahots goraz **aldarrikatzen** baitzuen, hartarako aukera emanez gero, musika guztia bitan banatzen zela, jazza eta gainerako hori, jazza batetik eta gainerako hori bestetik. Felipe Juaristi

Aldi berean, tinko **aldarrikatzen** da epaileaz kanpoko aitortza lasaia eta hotza, epaiketa izugarri baten beldurrik gabe egiten dena, ez dela aski zigortzeko. Juan Martin Elexpuru

Jerusalemen Judako erregetzat **aldarrika** zaitzaten profetak ere izendatu omen dituzu. Elizen arteko biblia

Jean Calas heriotza-zigorrera kondenatu zuten 1762ko martxoaren 9an eta hil egin zuten torturak jasan ondoren, nahiz eta berak bere errugabetasuna ozen **aldarrikatu** beti. Juan Martin Elexpuru

Arlo filosofikoan, moralean, legalean zein pedagogikoan sutsu **aldarrikatu** zuen ezberdintasuna. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

"Demo" demonio horiek segi dezatela hasi duten borroka baketsua, etsitu gabe **aldarrika** ditzagun euskararen eskubideak, horiek baitira beharrezkoenak. Herria

Karlos Lüküzeko kondeak -Joanes baroiaren semeak- goratik **aldarrikatzen** zuen Frantziako erregerekin eta are Espainiakoarekin harremanetan sartu beharra, "egiazko" erlijioa defendatzeko. Aingeru Epaltza

Zibilaren nagusitasun morala erakutsi beharrez, solemneki **aldarrikatu** nuen Kolko Mitxoletarengana iristeko delibero irmoa hartua nuela, kosta ahala kosta, hitz hauek erabiliz nire asmoen berri emateko: [...]. Jon Alonso

Hala ere, poloniar sutsua izan zen Rufin Piotrowski bizitza osoan, eta beti **aldarrikatu** zuen bere jaioterria, bere Podolia maitea, Poloniaren zati bat zela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Poliziak behin eta berriz **aldarrikatu** zuen irratiz eta egunkarietan, arren, erasoa eta lapurtua izan zen gizona ager zedila, hiltzailea harrapatzeko. Gotzon Garate

Une hartan, fabriketako sirenak orroka hasi ziren, egun hartako lanaren amaiera lau haizetara **aldarrikatuz** . Pedro Alberdi

3 (-la atzikizkiarekin)

Bere libururik ezagunenean, Kapitalaren pilatzea, pairatu zituen espetxealdietako batean idatzia, kapitalismoa barne kontraesanek desagerraraziko zutela **aldarrikatu** zuen, bere bizitza osoan maisutzat hartu zuen Marxen ildotik. Markos Zapiain

Emakumeak bere buruari "merezi dut" esan behar diola **aldarrikatzen** du. Ana Urkiza

Homero ahozkotasunetik ulertu behar dela **aldarrikatzen** badute ere, kritika literarioaren ohiko bidetik egiten dute homeristek Homeroren obraren azterketa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Sendatu egin zela oihukatu zuen, sendatu egin zela **aldarrikatu** zuen, sendatu egin zela eta eskerrak eman zizkion, Jainkoari baino lehenago, biolin jotzaileari. Felipe Juaristi

Erbestetik itzulitako guztiak Jerusalemera bil zitezela **aldarrikatu** zuten Judan eta Jerusalemen. Elizen arteko biblia

Guk, gaztetan, sakonean, hizkuntzarekiko konpromisoa izan genuen eta hizkuntzak edozertaz hitz egiteko balio zuela **aldarrikatu** nahi genuen. Ana Urkiza

Haren esentzia bat eta bakarra dela **aldarrikatzen** dugu, eta horretan ez dela inola ere ezer gehiturik. Xabier Kintana

Nik argi daukat, epaimahaietan parte hartzen dugun emakumeok, neurri zuzentzaile bat sartu behar diogula askotan gure buruari liburu edo lagin batean ikusten ditugun baloreak baliagarriak direla **aldarrikatzeko** . Ana Urkiza

Eta joera dugu **aldarrikatzeko** gelak, esate baterako, edo laborategiak eta liburutegiak, ez daudela behar bezain ongi hornituak, gero berriz ere azpimarratuko dugunez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egiazko arrazoiak **aldarrikatzen** digu hori litzatekeela gaitz orokorra. Imanol Unzurrunzaga

Bartzelonaren aurkako partida aukera ona da gure jokalariek partida ona egin dezaten, eta egun dauden tokian egotea ez dutela merezi **aldarrikatzeko** . Berria - Kirola

4 (era burutua izenondo gisa)

Pentsatzen dut telebistan Isabelle Parmentier, alaba hipotetikoa, bere atzean aitaren edo, hobeto esan, aita **aldarrikatuaren** argazki erraldoi bat zuela ikustean. Ramon Saizarbitoria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aldarrikatu baino (4); **aldarrikatu behar** (47); **aldarrikatu behar da** (5); **aldarrikatu behar du** (7); **aldarrikatu behar dugu** (6); **aldarrikatu beharko** (11); **aldarrikatu ditu** (10); **aldarrikatu dituzte** (12); **aldarrikatu du** (169); **aldarrikatu du batasunak** (4); **aldarrikatu du erredakzioa** (4); **aldarrikatu duela** (5); **aldarrikatu duen** (7); **aldarrikatu dugu** (5); **aldarrikatu dute** (99); **aldarrikatu duten** (5); **aldarrikatu egin** (5); **aldarrikatu eta** (63); **aldarrikatu ez** (4); **aldarrikatu izan** (13); **aldarrikatu izan du** (4); **aldarrikatu izana** (8); **aldarrikatu nahi** (51); **aldarrikatu nahi du** (8); **aldarrikatu nahi dugu** (9); **aldarrikatu nahi izan** (16); **aldarrikatu ohi** (5); **aldarrikatu ondoren** (8); **aldarrikatu zen** (14); **aldarrikatu zenean** (5); **aldarrikatu zion** (7); **aldarrikatu zituen** (38); **aldarrikatu zituzten** (21); **aldarrikatu zuen** (470); **aldarrikatu zuen atzo** (25); **aldarrikatu zuen bere** (5); **aldarrikatu zuen eta** (4); **aldarrikatu zuenean** (4); **aldarrikatu zuenetik** (5); **aldarrikatu zuten** (171); **aldarrikatu zuten atzo** (13); **aldarrikatu zuten eta** (4)

amnistia aldarrikatu (4); **askatasuna aldarrikatu** (10); **atentatua aldarrikatu** (4); **autodeterminazio eskubidea aldarrikatu** (12); **bat aldarrikatu** (19); **bat aldarrikatu zuen** (6); **bat aldarrikatu zuten** (5); **batasuna aldarrikatu** (8); **batek aldarrikatu** (4); **baten beharra aldarrikatu** (6); **behar dela aldarrikatu** (14); **behar dituela aldarrikatu** (4); **behar duela aldarrikatu** (18); **behar dutela aldarrikatu** (13); **beharko lukeela aldarrikatu** (4); **beharra aldarrikatu** (58); **beharra aldarrikatu du** (12); **beharra aldarrikatu dute** (7); **beharra aldarrikatu zuen** (22); **beharra aldarrikatu zuten** (13); **beharra dagoela aldarrikatu** (4); **berak aldarrikatu** (4); **berdintasuna aldarrikatu** (4); **berriro aldarrikatu** (5); **berriz aldarrikatu** (5); **beti aldarrikatu** (5); **dagoela aldarrikatu** (6); **dela aldarrikatu** (71); **dela aldarrikatu du** (16); **dela aldarrikatu dute** (9); **dela aldarrikatu zuen** (20); **dela aldarrikatu zuten** (9); **demokratikoa aldarrikatu** (4); **direla aldarrikatu** (10); **direla aldarrikatu zuen** (5); **direla aldarrikatu zuten** (4); **dituela aldarrikatu** (5); **duela aldarrikatu** (38); **duela aldarrikatu du** (11); **duela aldarrikatu dute** (7); **duela aldarrikatu eta** (4); **duela aldarrikatu zuen** (11); **duen eskubidea aldarrikatu** (6); **dutela aldarrikatu** (26); **dutela aldarrikatu dute** (5); **dutela aldarrikatu zuen** (11); **dutela aldarrikatu zuten** (4); **duten eskubidea aldarrikatu** (8); **egin beharra aldarrikatu** (5); **egitea aldarrikatu** (8); **egitea aldarrikatu zuen** (4); **elkarlana aldarrikatu** (6); **elkarrizketa aldarrikatu** (8); **elkarrizketa aldarrikatu zuten** (4); **erabakitzeko eskubidea aldarrikatu** (13); **ere aldarrikatu** (19); **ere aldarrikatu zuen** (6); **errepublika aldarrikatu** (11); **errespetua aldarrikatu** (5); **errugabe dela aldarrikatu** (4); **errugabetasuna aldarrikatu** (8); **eskubidea aldarrikatu** (84); **eskubidea aldarrikatu du** (7); **eskubidea aldarrikatu dute** (5); **eskubidea aldarrikatu eta** (9); **eskubidea aldarrikatu zuen** (33); **eskubidea aldarrikatu zuten** (9); **eskubidea duela aldarrikatu** (5); **eskubidea dutela aldarrikatu** (6); **eskubideak aldarrikatu** (22); **estatu katalana aldarrikatu** (4); **eta aldarrikatu** (17); **eta berriro aldarrikatu** (5); **eta berriz aldarrikatu** (4); **eta independentzia aldarrikatu** (4); **eta ozen aldarrikatu** (5); **eten iraunkorra aldarrikatu** (5); **etena aldarrikatu** (39); **etena aldarrikatu beharko** (4); **etena aldarrikatu zuen** (12); **europa aldarrikatu** (9); **euskararen ofizialtasuna aldarrikatu** (5); **garaia dela aldarrikatu** (7); **garaipena aldarrikatu** (4); **garrantzia aldarrikatu** (4); **gerra aldarrikatu** (8); **gisa aldarrikatu** (7); **guztiak aldarrikatu** (4); **handiagoa aldarrikatu** (4); **hau aldarrikatu** (6); **hori aldarrikatu** (8); **horiek aldarrikatu** (4); **ikasteko eskubidea aldarrikatu** (4); **independentzia aldarrikatu** (30); **independentzia aldarrikatu dute** (4); **independentzia aldarrikatu zuen** (10); **independentzia aldarrikatu zuten** (6); **iraunkorra aldarrikatu** (5); **izaera politikoa aldarrikatu** (7); **izan zela aldarrikatu** (4); **izana aldarrikatu** (5); **izatea aldarrikatu** (8); **izateko eskubidea aldarrikatu** (5); **katalana aldarrikatu** (4); **katalana aldarrikatu zuen** (4); **lana aldarrikatu** (9); **legea aldarrikatu** (4); **lehenago aldarrikatu** (4); **lukeela aldarrikatu** (5); **menia aldarrikatu** (4); **ofizialtasuna aldarrikatu** (9); **ozen aldarrikatu** (10); **politikoa aldarrikatu** (10); **premia aldarrikatu** (5); **presoen eskubideak aldarrikatu** (4); **soziala aldarrikatu** (4); **su etena aldarrikatu** (38); **zela aldarrikatu** (20); **zela aldarrikatu zuen** (10); **zela aldarrikatu zuten** (6); **zilegitasuna aldarrikatu** (6); **zirela aldarrikatu** (4); **zuela aldarrikatu** (8); **zuela aldarrikatu zuen** (5); **zutela aldarrikatu** (5); **zuzena aldarrikatu** (4)

aldarrikatua zuen (4); **aldarrikatua zuen** (4); **aldarrikatuko ditugu** (5); **aldarrikatuko dituzte** (7); **aldarrikatuko du** (29); **aldarrikatuko duela** (7); **aldarrikatuko dugu** (6); **aldarrikatuko dute** (40); **aldarrikatuko duten** (4); **aldarrikatutako su** (5); **aldarrikatutako su etena** (4); **aldarrikatuz gero** (7); **autodeterminazio eskubidea aldarrikatuko** (7); **dela aldarrikatuko** (8); **dela aldarrikatuko dute** (4); **duela aldarrikatuko** (5); **ere aldarrikatuko** (6); **eskubidea aldarrikatuko** (12); **eskubidea aldarrikatuko dute** (5); **eskubidea aldarrikatuz** (4); **eskubideak aldarrikatuz** (5); **eta aldarrikatuz** (4); **independentzia aldarrikatuko** (5); **politikoa aldarrikatuko** (5); **zela aldarrikatuz** (5)

aldarrikatzea da (6); **aldarrikatzea ere** (5); **aldarrikatzea eta** (14); **aldarrikatzea ez** (6); **aldarrikatzea izan** (5); **aldarrikatzearekin batera** (4); **aldarrikatzeaz gain** (7); **aldarrikatzeko asmoz** (6); **aldarrikatzeko deia** (4); **aldarrikatzeko eskatu** (5); **aldarrikatzeko eta** (14); **aldarrikatzeko prest** (4); **aldarrikatzen ari** (25); **aldarrikatzen ari dira** (8); **aldarrikatzen da** (12); **aldarrikatzen den** (5); **aldarrikatzen ditu** (13); **aldarrikatzen dituen** (10); **aldarrikatzen ditugu** (4); **aldarrikatzen ditut** (4); **aldarrikatzen dituzte** (6); **aldarrikatzen dituzten** (13); **aldarrikatzen dituztenak** (4); **aldarrikatzen du** (149); **aldarrikatzen du bere** (4); **aldarrikatzen du eta** (5); **aldarrikatzen duela** (5); **aldarrikatzen duelako** (4); **aldarrikatzen duen** (49); **aldarrikatzen duena** (11); **aldarrikatzen duenean** (5); **aldarrikatzen dugu** (40); **aldarrikatzen dugun** (6); **aldarrikatzen dut** (9); **aldarrikatzen dute** (80); **aldarrikatzen duten** (31); **aldarrikatzen dutenak** (12); **aldarrikatzen duzun** (4); **aldarrikatzen eta** (5); **aldarrikatzen ez** (4); **aldarrikatzen genuen** (6); **aldarrikatzen hasi** (4); **aldarrikatzen jarraituko** (5); **aldarrikatzen zen** (6); **aldarrikatzen zituen** (5); **aldarrikatzen zituzten** (5); **aldarrikatzen zuela** (4); **aldarrikatzen zuen** (63); **aldarrikatzen zuena** (4); **aldarrikatzen zuten** (33); **askatasuna aldarrikatzen** (8); **autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko** (4); **autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen** (6); **autodeterminazioa aldarrikatzen** (4); **autonomia aldarrikatzen** (4); **bat aldarrikatzea** (4); **bat aldarrikatzeko** (4); **bat aldarrikatzen** (20); **bat aldarrikatzen du** (4); **behar dela aldarrikatzen** (5); **behar direla aldarrikatzen** (4); **behar duela aldarrikatzeko** (4); **behar duela aldarrikatzen** (5); **beharra aldarrikatzeko** (8); **beharra aldarrikatzen** (13); **beharra aldarrikatzen du** (4); **berak aldarrikatzen** (4); **bezala aldarrikatzen** (4); **dela aldarrikatzea** (7); **dela aldarrikatzeko** (8); **dela aldarrikatzen** (34); **dela aldarrikatzen du** (10); **dela aldarrikatzen dugu** (6); **direla aldarrikatzeko** (5); **direla aldarrikatzen** (10); **direla aldarrikatzen du** (4); **duela aldarrikatzeko** (7); **duela aldarrikatzen** (12); **duela aldarrikatzen du** (4); **duela aldarrikatzen duen** (4); **dugu aldarrikatzen** (4); **dutela aldarrikatzeko** (8); **dutela aldarrikatzen** (7); **ere aldarrikatzen** (10); **errespetua aldarrikatzen** (5); **eskubidea aldarrikatzea** (7); **eskubidea aldarrikatzeko** (17); **eskubidea aldarrikatzen** (37); **eskubidea aldarrikatzen du** (12); **eskubidea aldarrikatzen dute** (9); **eskubideak aldarrikatzea** (6); **eskubideak aldarrikatzeko** (28); **eskubideak aldarrikatzen** (10); **eta aldarrikatzeko** (5); **eta aldarrikatzen** (8); **etena aldarrikatzeko** (6); **etena aldarrikatzeko prest** (4); **euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen** (4); **garaipena aldarrikatzen** (4); **hori aldarrikatzea** (4); **hori aldarrikatzeko** (4); **hori aldarrikatzen** (8); **independentzia aldarrikatzeko** (10); **independentzia aldarrikatzen** (15); **independentzia aldarrikatzen dute** (5); **independentzia aldarrikatzen duten** (5); **izatea aldarrikatzen** (6); **izatea aldarrikatzen dute** (4); **izateko eskubidea**

aldarrikatzen (4); **justizia aldarrikatzen** (4); **ofizialtasuna aldarrikatzen** (6); **ozenki aldarrikatzen** (4); **politikoa aldarrikatzeko** (4); **su etena aldarrikatzeko** (5); **subiranotasuna aldarrikatzeko** (4); **zegoela aldarrikatzen** (4); **zela aldarrikatzen** (9); **zela aldarrikatzen zuen** (4); **zuk aldarrikatzen** (4)

---

aldarrikatzaile 1 *izond* aldarrikatzen duena.

Epe laburrean, datozen hauteskundeetan, aldiz, pendulua alde **aldarrikatzailera** mugituko dela aurreikus daiteke, EA koaliziokidearekiko kontraesan europarrak azkar ahaztuz. Berria - Harian

Aitzitik, gero eta gehiago okertzen ari da, izan ere, gero eta jende gehiago atxilotzen duelako ekimen **aldarrikatzaile** bat egiten den bakoitzean. Berria - Euskal Herria

2 (izen gisa) aldarrikatzen duen pertsona.

Erabat demokratikoak diren idealekin "eszeptikoa" dela esan izan du eta "erromantikotzat" jo ditu liberalismoaren **aldarrikatzaileak**. Berria - Mundua

Castela eta Andriuzziri leporatzen diete 1998ko otsailaren 6an gertatu zen Claude Erignac Korsikako prefetaren hilketaren manatzaile eta **aldarrikatzaileak** izatea eta, horretarako, 30 urteko espetxe zigorrera kondenatu zituzten 2003ko uztailean. Berria - Mundua

Gorago esan dudanez, irakasle jendea izan ohi gara euskara batu formalaren **aldarrikatzaile**, baina jokabide berbera erakusten du kazetari jendeak ere sarri. Koldo Zuazo

Bere manupeko gizonak, akatsik gabeko gazte ario haiek, borrokatzeko makina itsuak izanen ziren, gaindiezinak, baina aldi berean erlijio berri baten sinestunak, paganismo berriaren **aldarrikatzaileak**? Alberto Ladron Arana

Legazpiko idazlearen iritziz, "oso pozgarria" da lanen bat itzuli ahal izatea, eta, hainbat ideia "berrukitu eta berridatzi" baditu ere, Onán **"aldarrikatzaile** jaio zen eta **aldarrikatzaile** izaten jarraitzen du", nabarmendu du Aranak. Berria - Kultura

---

aldarrikatze *iz* zerbaiten berri aldarrika ematea, jendaurrean ageriki adieraztea.

1892an, La Débâcle, non Sedango porrota, inperioaren amaiera, Hirugarren Errepublikaren **aldarrikatzea**, Parisko setioa, Komuna eta haren kontrako errepresioa kontatzen diren. Karlos Zabala

Horrexegatik aritu gara lege horien **aldarrikatze** moldeaz. Andres Urrutia

---

aldarrilari *iz* aldarri egiten duen pertsona.

Aldarrilariak, ederrenaz aurrera, banan banan zutiaraziz, hasten zuen bere eskaintza, eta mutilik aberatsenek elkarren lehian sekulako dirualdiak botatzen zituzten neskatxik ederrenak berenganatzeko aiherrez. Patziku Perurena

---

aldarte 1 *iz* aldakorra den zerbaiten egoera bakoitza. ik **aldi**.

Hainbeste nahasten naiz kontuan hartu behar ditudan gauza guztiekin, non edo barrez hasten bainaiz, edo negarrari ematen natzaio bestela, zer **aldarte** dudan. Josu Zabaleta

Arrotza egiten zitzaion gure **aldartea**, Adrianen hitz egiteko modua: bera baso barrenean ibiltzetik zetorren, eta ziurrenik ere hitzak isil mugituko ziren bere gogoan, zalapartarik gabe. Bernardo Atxaga

Aski gogoko ditut antzezlan horren **aldarteak**. Juan Garzia

Zientzia orok bezala, biologiak bere **aldarteak** ditu, txandakako bere baikorraldiak eta bere depresioaldiekin. Juan Garzia

Edozein estimulu nahiz albisteren **aldartera**, berehala makurtzen ote zen? Xabier Olarra

Ia erremediorik gabe, mimetikoki, **aldarte** hartara lerratzen ote? Xabier Olarra

Hortzak biziaren ataka, gure **aldarte** guzien salatari. Patziku Perurena

Aldartea transmititu egin daiteke eta gorputzaren bidez adierazi, egoera ere alda dezake. Berria - Euskal Herria

Beste batzuetan ere esan izan dizut uneko **aldartearen** zein mendeko garen hemen denok, eta gaitz hori azkenaldi honetan geroz eta okerragora egiten ari dela iruditzen zait, niregan batez ere. Josu Zabaleta

Bada beste pertsona bat nire **aldarteak** eragiten dituena. Josu Zabaleta

Zure laguna izango naiz, zure **aldarteak** ulertuko ditut, zure pozak, zure egun on eta txarrak. Gotzon Garate

Zaldunak emakumeei buruz ikasitakoa gogoratu eta, erabaki zuen, atsoari bere gain agintzen uzten bazion, **aldartea** gozatu egingo zitzaiola. Pako Aristi

Aldartea orekatzen duen mekanismo biologikoari eragiten dio bipolaritateak. Berria - Gaiak

Beste egoera batean "ez naiz umea" erantsiko nukeen, baina ez nuen amaren **aldartea** zapuztu nahi. Anjel Lertxundi

Ez zen bere kontua, baina Damian jabetzen zen egunero hartzen zituen morfina tanto haiek, gozatu baino, garraztu egiten zutela Leonen **aldartea**. Hasier Etxeberria

Gero, senarraren segurtasunarekiko izuak behin uxatuta, zakartu egiten zitzaion **aldartea** eta minduta sentitzen zen. Mirentxu Larrañaga

Kopeta belztu eta **aldartea** ilundu zitzaizkion, atsoa deitzeaz gainera, erotzat hartu nuelako. Anjel Lertxundi

Niri begiratu hutsarekin ohartua zen andrea nire umoreaz eta **aldarteaz**. Fernando Rey

Beldur zen britxka ezagutuko ote zuten, baina funtzionarioak ez zeuden horri arretarik jartzeko **aldartean**. Jose Morales

Aldiak izaten zituen, **aldartearen** arabera; bufoiren bat behar zuenean, bere miztoko pozoi guztia hari sartzeko, aski zuen edozein aitzakia. Juan Kruz Igerabide

Artistaren **aldartearen** arabera, gai bat oso modu desberdinetan landu daiteekela erakutsi nahi izan dio ikusleari hainbat estilo nahastuz. Berria - Kultura

Alkohola, **aldartearen** alaigarri eta bihotzaren pizgarri hori. Juan Garzia

Tentsio-uneen atzetik etorri ohi den desgogoa jabetu zen nire **aldarteaz**. Bernardo Atxaga

Jainko apetatsuen **aldarteen** menera, itsasoan galdutako argonauta. Aingeru Epaltza

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Garai ez urrun batean haitz-horma bati ekiten genion **aldarte** berean oldartu nintzen lanera. Patxadak eta **aldarte** onak dena konponduko balute bezala jokatzen zuen aitak. Juan Garzia

Eskerrak gizaseme jator, adiskidetsu eta **aldarte** onekoa den. Gotzon Garate

Aitak bakarrik ekin zion, bada, paseoari, **aldarte** onean eta pauso arinez. Anjel Lertxundi

Jauzi txikiak eginez zihoan espaloitik, oso **aldarte** onean, ulertzen? Jose Morales

Partida hau zen halere gero, ainitzek igurikatzen zutena: huntan Gonzalez-Arrayok dituzte Xala-Apeztegia jo 22-15, bi irabazleak **aldarte** onean zirelarik. Herria

Harry liburutegitik igarotzean, Percy Weasley irten zen handik astiro, azkenekoz elkarrekin topo egin zutenean baino askoz **aldarte** hobean. Iñaki Mendiguren

Gamaliel **aldarte** txarrean tentetu zen, marmarka bizian. Juan Garzia

Aldarte txarrez eta nahigabeturik itzuli zen etxera. Patxi Zubizarreta

Annie **aldarte** txarreko zegoen, noski, eta erantzun laburrak ematen zizkion. Irene Aldasoro

Zapateroren gobernuaren **"aldarte** baketsuagoarekin" lotuta ei dago erabakia. Berria - Ekonomia

Mollyk zioenez, Koronela oso umore txarreko zebilen hura guztia zela-eta, eta han goian, Etxandian, denek ere askoz beldur handiagoa omen zioten haren **aldarte** malapartatuari gerrari berari baino. Mirentxu Larrañaga

Hil baino ordu batzuk lehenago, osabak susperraldi bat izan zuen, eta portxean eseri orduko antzeman genion, irribarreagatik, **aldarte** umoretsua zekarrela. Bernardo Atxaga

Denbora luzea egin zuen **aldarte** gogoetatsuan. Anjel Lertxundi

Eszenak eta muinoko freskoak erasan egin zioten nire ordu arteko **aldarte** badaezpadakoari. Anjel Lertxundi

Presarik gabe eta debekaturiko lurraldean barrentzen den esploratzailearen **aldarte** ausart eta arretatsuaz, armairuak zabaldu, tiraderak miatu, kutxen edukia aztertu eta gure etxeko zoko-moko guztiez jabetzen joan nintzen. Alberto Ladron Arana

Sosegatuago zegoen Mathilde, haren begiei eta ezpain-arteari ohikoa zuen **aldarte** xaloa jaulkitzen zitzaiela, eta masailak berriro kolore zurbil finaren jabe. Anjel Lertxundi

Haren **aldarte** bitxi hura menderatzeko gai izan nahi zukeen. Irene Aldasoro

Gero eta **aldarte** gaiztoago baten mende, begiak gorritzen ari zitzaizkion. Anjel Lertxundi

Enrico, ordea, **aldarte** gaitzean zen, eta zalantzan jartzen zuen dena. Juan Garzia

Ez da datorkionari aurre egiteko **aldarte** egokiena. Oskar Arana

Egia da estualdi larri bat **aldarte** lasaian gogora ekartzea, idazmahaian patxadaz eserita, gogo-atsegingarri bete-betea gerta daitekeela. Juan Garzia

Aldarte iluneko bazegoen, ez zuen hitz-erdirik egiten. Mirentxu Larrañaga

Deabruzko gaua igaro zuen eta, biharamunean, **aldarte** zapuztuarekin jaiki zen. Patxi Zubizarreta

Aldarte askoz ere hobe batez zegoen aita, soldaduburua arto-hostozko lore-sortarekin utzi izanak dibertiturik. Anjel Lertxundi

-Zeuk ikusi, baina ez ahantzi Samandal erregearen **aldartea** oso aldakorra dela, eta haren erreakzioak antzemanezinak. Patxi Zubizarreta

Aldarte askoz ere hobe batez zegoen aita, soldaduburua arto-hostozko lore-sortarekin utzi izanak dibertiturik. Anjel Lertxundi

Asmoan tinko, bertutean egonkor, grazian iraunkor eta beti **aldarte** bereko. Askoren artean

Begoña Erraztiren ustez, Conde-Pumpidok ez du "inolako **aldarte** demokratikorik" erakutsi. Berria - Harian

Aldarte historiko, sozial, kulturalen arabera, giza esperientzia (beti erlatiboa) aldatuz doa, eta aldatuz doaz esperientzia -morala- gidatzen duten balioak ere (beti erlatiboak). Joxe Azurmendi

Saltoka hasi ginen hirurok, malkotan blai, pozez lehertu beharrean, baina segituan konturatu ginen ez zela komeni halako **aldartean** ikus gintzaten. Karlos Linazasoro

Hausnarreko **aldartean** ni, emakumeak hatzak klaskatu zituen eta hurbiltzeko eskatu zidan. Anjel Lertxundi

Ordu erdiko kontua izanda ere, lorturikoaren plazerra edo galdurikoaren errea ez da ordu erdi soil horretara mugatzen, astebeteko **aldartea** egon bailiteke horren baitan. Xabier Mendiguren Elizegi

Malenkoniatsu jartzen ditu aittittek bere ipuinekin, lotarako **aldartean** daude haren hitzak entzunda, eztitu egiten ditu beren etsipenean, azken bonba bat dagoen artean beti egonen da posibilitate bat milioiko. Koldo Izagirre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Afektuen kanpo-kausa ezabatzean, eta beste pentsamendu batzuetara igortzean, desagertu egiten dira afektu horiek eta ondorengo **aldarte**-gorabeherak. Piarres Xarriton

Horregatik izan zituela **aldarte** gorabehera haiek minutu gutxiko hizketaldian. Bernardo Atxaga

Nik ere -**aldarte** kontuan amagana jo dut, ez dago zalantzarik- beldurra hartu nion gauari, Andreasek, gizonaren **aldarte**-aldaketaz oharturik, eta agureak edaria bukatuta zeukanez, beste botila bat eskaini zion. Bernardo Atxaga

Horren guztiaren atzean zeuden sekretu, asmo eta itxurakeriak ulertzen hasi zen, konturatu zen neskak etortzen zirenean mutil taldean zegoen **aldarte** aldaketaz. Urtzi Urrutikoeetxea

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amorrazioa ematen du zenbaitsutan, kanturako gorputz-**aldarte** ona eta burua argi eduki eta ordu eta erdian, hurrenez hurren, txakurra, aingerua, agure tangazalea eta Armstrong-en txirrindaren plater handia izan beharrak. Andoni Egaña

La città è un stato d'animo (hiria gogo-**aldarte** bat da) dio Mario Soldatik. Anjel Lertxundi

Bitartean, Txitxikov gogo-**aldarte** oneko zegoen bere britxkan, zeina aspalditxo baitzen bide nagusitik zihoala. Jose Morales

Baina gure protagonista, erlojurik gabe ere, gogo-**aldarte** ezin hobeko zegoen. Jose Morales

Espekulazio **aldarte** batean, ondorioztatzen du "zerbait" horrek bere ifrentzua izan lezakeela: gogo edo adimeneko intentsitate edo benetakotasun moduko bat, alegia, normalek galdu dutena, halako moldez non gainerakooi noble, barregarri edo beldurgarri iruditzen zaigun. Xabier Olarra

5 ***gogo aldarte***

Gogo-aldarterik gabe dihardu legeak, anbibalentziarik gabe. Joxan Elosegi

La città è un stato d'animo (hiria **gogo**-aldarte bat da) dio Mario Soldatik. Anjel Lertxundi

Izan ere, idazleak adierazi zuenez, umore ona da gizartean apain jantzi daitekeen trajerik egokiena eta **gogo-aldartearen** egoera osasuntsu bat bezala har genezake. Berria - Euskal Herria

Egoera hartan, idazteko **gogo aldarterik** hoberenean nengoelarik ere, ez zitzaidan hitzik etortzen. Ramon Saizarbitoria

Gogo-egoera eta burmuin-egoera partikularren arteko identitatea onartzen badu ere, bien arteko identitate orokorra ez du onartzen. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldarte aldaketa (5); **aldarte aldaketak** (4); **aldarte aldaketaz** (3); **aldarte bat** (10); **aldarte eta** (6); **aldarte ezin** (4); **aldarte horretan** (3); **aldarte on** (4); **aldarte ona** (14); **aldarte onak** (6); **aldarte onean** (37); **aldarte onean zegoen** (5); **aldarte oneko** (20); **aldarte oneko eta** (3); **aldarte oneko zegoen** (3); **aldarte onekoa** (5); **aldarte onez** (6); **aldarte txar** (3); **aldarte txarra** (3); **aldarte txarrak** (3); **aldarte txarrean** (11); **aldarte txarreko** (3); **aldarte txarrez** (8); **aldartea aldatu** (4); **aldartea ere** (3); **aldartea eta** (5); **aldartea ez** (3); **aldartea ezin** (3); **aldarteak eta** (3); **aldartearen arabera** (5); **baino aldarte** (4); **bat bateko aldarte** (3); **bateko aldarte** (3); **bere aldarte** (6); **bere aldartea** (5); **beste aldarte** (6); **beti aldarte** (3); **da aldarte** (5); **eta aldarte** (30); **eta aldarte onean** (6); **eta aldartea** (4); **eta aldarteak** (3); **gogo aldarte** (9); **gogo aldarte bat** (3); **gogo aldartea** (9); **hain aldarte** (3); **haren aldarte** (5); **horren aldarte** (4); **nire aldarte** (3); **nire aldarteak** (3); **oso aldarte** (8); **oso aldarte onean** (5); **zer aldarte** (3); **zuen aldarte** (4); **zuen aldartea** (4)

---

aldarteka *adlag* tarteka.

"Horiek guztiak gogoratzen ditu **aldarteka**", esplikatu zuen Pette Irigoin, ikusgarria muntatzeko sortu duten Pika elkarteko lehendakariak. Berria - Kultura

---

aldartekeria *iz* aldarteak eragindako jokaera, gaitzesgarritzat hartua.

Halaxe defenditzen dute antzezleen itxurazko aieruen eta **aldartekeria** arduragabearen kontra, eta halaxe hartzera behartu nahi dute konpainia-burua, hark berez nahiago izango baitzukeen aldatu eta antzerkiaren eskakizun omen direnetara moldatu. Josu Zabaleta

---

aldartetsu *izond* aldartez betea, apetasua.

Artista batek ere, bizi delarik, bizitzaren ernamuin asko eta asko jasotzen ditu bere baitan, eta ezin esan dezake nola eta zergatik txertatzen zaion ernamuin horietako bat une batean bere irudimenean, eguneroko existentzia **aldartetsua** baino goragoko bizi maila batean sorkari bizi bilakatzeko. Josu Zabaleta

Ideia horien sorburu **aldartetsuak** nondik darion ikusten ez dugulako harritzen gaitu ustekabean. Josu Zabaleta

Bera bezalako behartsu bat, **aldartetsua**, berekoia edo adulteroa baldin bazen, izugarrikeria bat iruditzen zitzaion; baina hori bera andre puztu batek eginez gero, barkagarria iruditzen zitzaion. Josu Zabaleta

Zeren zinez baitziren ume handiak bezalakoak: bizkaitarra, berez halakoa zelako, alditsua eta **aldartetsua**, eta gipuzkoarra, hala jokatzea erabaki zuelako, xalotasunaren eta tolesgabetasunaren beztimenda arimaren estalgarritzat harturik. Joan Mari Irigoien

aldartez *adlag* egoera animiko aldetik.

Aldartez herio batean naiz, eta gorputzez eta nerbioz ere hiltzen nau nire inguruan dirakien, lotan dela ere nire inguruan bizi den jendetza ikaragarri horrek. Josu Zabaleta

Suminkorra da **aldartez**, eta gogor egingo dio eraso ahulagoari, baina, erantzun irmo samar batekin topo egiten badu, ibilgailuaren barne aldera itzuriko da, eta ahalik eta gutxien nabarmentzen saiatuko da han. Xabier Olarra

Eta, ezustean, "Hagina" dugu, azken ipuina, doinuz eta **aldartez** aurreko desesperoa berrerosten duena. Markos Zapiain

Garaipen-**aldartez** eraman genuen gure beste lagunarengana, larunbatetik astelehenera arteko istorio harekin, eta sekula ez dut ahaztuko zelako begirada alaiarekin egin zion salto Salford jaunak. Julen Gabiria

---

aldasare *iz* itsasontzietan, babes gisa erabiltzen den kutxa modukoa.

Adderley-k, **aldasarean** gaindi aterarik burua, irri egiten zuen uhinen zurrunbilotxoei so. Juan Garzia

Ababorrera eta istriborrera egin zuten aski bateratsu, eta, **aldasarean** gaindi aterarik beren aurpegi beltzak, itsaso makurrari egin zioten opari nahaste hura. Juan Garzia

Aldasareari atxikia utzi zuten perraila. Juan Garzia

---

aldasbehera ik **aldats**.

---

aldaska ik **aldaxka**.

---

aldategi *iz ipar* aldagela.

Besteak beste urtegi bat, eskualde hartako izan ditakeen asurtienetarik, hango gazteentzat eta bereziki elbarrituak direnentzat kirol zelai egoki bat, **aldategia** eta biltoki bat aldean. Herria

De Gaulle-k erraiten zuen behar zirela ganibetak utzi **aldategietan**. Herria

---

aldats *(orobat **aldatz** g.er.)* **1** *iz* aldapa, malda.

Eguzki galgatan, laino eta hodeirik gabe, erre eta kiskali den lur azalean, beroak, horixe du joera normala eta goraka egiten du, mendiren batzuen **aldats** eta pendizak topatu ahala. Pello Zabala

Zegoen bezala eseri, burua eskuen artean hartu eta larrera begiratu zuen, eta ordurako gurdia bete bete eginda zihoan han **aldats** behera astiro eta kulunka, idiek aittitte akuiluaz eta aio aiomaka aldamenetik gidari zutela. Joseba Sarrionandia

Urak **aldats** behera abiada hartzen duen gisara, beroak pendiza gora, zenbat eta pikoago orduan eta abia handiago hartzen du. Pello Zabala

Ez zituen ikusten kontrako norabidean zetozenak, ez zien agiraka egiten, ez zuen abiada eroa moteltzen ez bihurgune itxietan ez **aldats** beheran. Jose Morales

Tranbia Arriagarako **aldats** beheran zihoan eta balaztatu beharraren durundiak iragarri zion bidaiaren amaiera aurreko unea. Josu Landa

Izerdi zuritan dago, ikusi ere ez du egin zurginaren gurdia **aldats** gora. Koldo Izagirre

Tropela bazihoala aurrerantz, **aldats** gora. Berria - Kultura

Gaurko etapa ere aproposa da esprinterrak zigortzeko, Calpeko helmuga **aldats** gora baita. Berria - Kirola

Arimarik gabeko eremua, **aldats** gora etengabea, haize arerioa, laino oso trinkoa. Jon Arretxe

Karabanak [...] **aldats** goran egin beharko zuen haraino. Edorta Jimenez

Egitekoak eginda, **aldatsa** luze egiten ei jakon Artebakarran eta soinu astun bizkarrean, baina hogerlekoak aurpegi polita eukan orduan. Xabier Amuriza

Erreka zeharkatzen hasi aurretik ttu egin du uraren erdian, eta beste ertzean zuhaitzen artetik hauteman daitekeen zilar kolore arineko **aldatsari** erreparatu dio. Pello Lizarralde

Bikoiztuko den errepide zatiaren lehen 400 metroetan gaur egungo errepidearen **aldatsa** sei metro beheratuko da, %5 baino gehiagoko aldaparik egon ez dadin. Berria - Euskal Herria

Esfortzua da, txirrindulari asko **aldatsaren** bukaeran irribarrez doazen irudipena ematen digun neke hori bera. Pako Aristi

Orrondo arratsalde erdian fabrika batera bidali omen zuten trokel batekin, eta kanposantuko **aldatsean** gora zihoala, Manuel auto batetik irteten ikusi omen zuen, beste neska-mutil batekin. Pedro Alberdi

Azken hiru kilometroak dira tenteenak: %10eko desnibela, %14ko **aldatsekin**. Berria - Kirola

2 (izenondoekin)

Gobernuen, gerren eta goseteen historia zalapartatsuaren gibeletik, itxuran mugiezineko, **aldats** leuneko, historiak diseinatzen dira: itsas bideen historiak, gariaren edo urre-meatzeen historiak, lehorreko eta ureztatutako laborantzaren historia, laboreen errotazioaren historia, gizateriak gosetearen eta ugaritasunaren artean lortu duen orekaren historia. Xabier Arregi

Gauzarik berrienak egun batetik bestera ahazten zaizkigu, baina aspaldi gertatu zirenak gure izaeraren enborrean huntz eginik diraute, eta, **aldats** gotorreko elur lodian bildurik biraka hasten den harriak gero eta elur gehiago bereganatzen duen antzera, oroitzapen zaharrok ere han edo hemen sortutako albiste, iruzkin edo kikimakoren baten bultzadatxoa aski dute, arrapaladan hasierakoaren kateko gero eta oroitzapen gehiago erakartzeko. Pako Aristi

Udaberriak ekarri ohi duen **aldats** ezegonkor horren itxura. Pello Zabala

Eskolara gabe dauzkan orduetan paseatzera ateratzen da, luze ibiltzera, bazterrak ederresten, landare, lore eta hegaztien izenak ikasi nahian, **aldats** ilun edota baratze erpinetako zokoen misterioak miatzen, apaiz txiki baten moduan. Pako Aristi

3 ***aldats behera***

Bi zakur alsaziar heldu dira **aldats behera** galapan. Joseba Sarrionandia

Urak **aldats behera** abiada hartzen duen gisara, beroak pendiza gora, zenbat eta pikoago orduan eta abia handiago hartzen du. Pello Zabala

Ur-emariak, isuri ahal izateko, **aldats-behera** behar duen bezala, horrela behar du Bestelako Komunikazioak ere kodeen berritzea. Txema Ramirez de la Piscina

Ez zituen ikusten kontrako norabidean zetozenak, ez zien agiraka egiten, ez zuen abiada eroa moteltzen ez bihurgune itxietan ez **aldats beheran**. Jose Morales

Burrunba ederra atera zuen pirikan joan zenean, eta marmitak **aldats behera** ikusi zituen, esnezko lerro zuriak marraztuz. Joxemari Urteaga

4 ***aldats egin*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Prentsak, denbora tarte honetan, ikasiko du hemendik" demagun" horretara artekoan egungo hainbat ohitura atabiko bazter uzten? **Aldats egingo** zaigula dirudi. ETC-prentsa

5 ***aldats gora***

Laua da hasiera, **aldats gora** hurrengo hiru kilometroak eta beherantz azken biak. Berria - Kirola

Bigarren zatiaren hastapenean **aldats gora** jarri zitzaien partida baionarrei, 6-15 jarri baitziren. Berria - Kirola

Gainera, Langreok gola sartu zuen, eta partidua **aldats gora** jarria zitzaion beraren taldeari. Pedro Alberdi

Karabanak, auto bi zirenez gero karabana berba zuzentzat jo daiteke-eta, karabanak, diot, **aldats goran** egin beharko zuen haraino. Edorta Jimenez

Goiz eta adoretsu ekin diot gaurko ibilbideari, baina lehenengo orduetako tartea ez da lar lagungarria izan: arimarik gabeko eremua, **aldats gora** etengabea, haize arerioa, laino oso trinkoa... Jon Arretxe

Izerdi zuritan dago, ikusi ere ez du egin zurginaren gurdia **aldats gora**. Koldo Izagirre

6 *aldats gora jarri* (zerbait) zaila, neketsua gertatu.

Bigarren zatiaren hastapenean **aldats gora jarri** zitzaien partida baionarrei, 6-15 jarri baitziren. Berria - Kirola

Bigarren aldiz galdu du Hormadik Mulhouseren kontra eta **aldats gora jarri** zaio Magnus Kopako final-laurdenetako kanporaketa, 1-2 jarri baitira. Berria - Kirola

Lyonek bezala, Stuttgarteko Fernando Meirak egin zuen bere atean partidako gol bakarra, eta **aldats gora jarri** du kanporaketa Stuttgartentzat. Berria - Kirola

7 *aldats gorako*

Muino gainean haizea errime sentituko duzue, baina **aldats gorako** nekea merezi izango du goitik berera ikusiko duzuen espektakuluak: animaliatxo zuribeltzez beterik dago itsasorainoko arrokegi guztia. Joseba Sarrionandia

Azken honek laburtzen du bere bidaia eta **aldats gorakoa**, eta, horrekin, eguneko argia. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aldats behera (9); **aldats gora** (14); **aldats gora jarri** (4); **eta aldats** (6); **eta aldats gora** (3)

---

aldatu *(ETCn **161.753** agerraldi)* alda(tu), aldatzen **1** da/du *ad* zerbaiten edo norbaiten ordez kideko bat jarri edo hartu; jantziez mintzatuz, soinean eramaten dena kendu eta beste bat jarri; desberdin bilakarazi; tokiz aldatu.

Teseori ahaztu egiten zaio oihala **aldatzea**, eta beltzarekin agertzen da. Juan Kruz Igerabide

Eta zirkunstantzia historikoak **aldatu** zirelako egin ahal izan zuen: Xabier Amuriza

Eguraldiari buruz hizketan hasi zen, uda beroa izango zela eta bera, aspaldi, mutikoa zen garaietatik hona urtaroak asko **aldatu** zirela esanez. Irene Aldasoro

Arropak **aldatu** aurretik trago bat ordainduko dudala esan diet, eta, begira, denak apuntatu dira. Paddy Rekalde

Zurrunbiloaren erdian, ondotxo jantzita ez ote zegoen pentsatzeko astia eduki nuen eta gauzak nola **aldatu** diren ere pentsatu nuen, ni gazteagoa nintzen garai urrun haietatik hona. Hasier Etxeberria

Bat-bateko haize-bala batek ontziaren norabidea **aldatu** du. Anjel Lertxundi

Arropak **aldatzera** etorria zela ematen zuen. Joseba Sarrionandia

Hala ere, halako ezerk ez luke **aldatuko** praktikan azkenean horrelaxe joan den testu hau. Juan Garzia

Besaulkian eserita, gorputza aurrera botata, aita handitu egiten zen, puztu, aurpegiak **aldatzen** zituen, harridura, beldurra... atzapar handiak gora jasotzen zituen gure gainean itzala zabalduz eta, ahotsaren doinuarekin, urrundu eta hurbildu egiten zen-ahapeka eta bi eskuak muturrean, urrutira hitz egiten duenak bezala. Jon Maia

Eta horrela eskubidea gaur **aldatu** gabe gelditzen da, eta horrela geldituko da bihar ere, baldin eta bitartean ematen ez badut; nirea denak nire izaten jarraitzen baitu, gero ematen ez badut bederen. Esteban Antxustegi

Parlamentu bakoitzarekin, nolabait esan, **aldatu** egiten du tarifa, eskubide partikularrak kenduz edo erantsiz. Iñaki Iñurrieta

XX. mende horren amaierarako, eta beste ikuspuntu batetik begiraturik, ezagutzaren kontzeptua bera ere **aldatua** zen, D. Bell-ek 25 urte lehenago gaztigatu zigun gisa, ezagutza, ezagumendua, bihurtu baita baliabide ekonomikorik garrantzizkoena munduan. Pello Salaburu

Masailak kolorgetu egin zitzaizkion, kolore oro bere sudur mela-mela egindakora **aldatu** izan balitzaio bezala, eta azpildura arrosak ageri zituen betile zurbilen inguruan. Mirentxu Larrañaga

Espainiako galeoi batera **aldatuz**, apostolu nekaezinak Atlantikoa zeharkatua zuen Cadizetik Vera Cruzera, eta Ozeano Barea, Akapulkotik Filipinetaraino. Iñaki Mendiguren

Aldatu ote zien berezko izaera informazioarengatik eta informaziorako bizitzeko ohiturak, bigarren izaera baten modura berenganatua zutenak? Karlos Zabala

Baina kirol-epaileak munduko gizabana - korik harroenak dira eta ez zuten erabakia **aldatu** nahi izan, sekula ez delako atzera bueltarik egon erlojupeko batean; non eta erlojupeko etapa batean." Unai Elorriaga

Nola **aldatu** diren denborak. Pello Salaburu

Bere definizioa ere **aldatu** egin digute: heriotza bizitzaren zentzua borobiltzen zuen unea zen; orain ezkutatu beharreko gaitz bat bihurtu da. Pako Aristi

Gero eta gose zakarragoa nuen eta, nire bazkariak **aldatzeko**, arrautza egosiak eta txokolatea eramaten nituen. Joxan Elosegi

Baina obraren bat ireki eta lerroetan erortzen bada, arreta apur bat jarri eta ausartzen bada, orduan gauzak **aldatuko** dira, eguzki aurreko hodei handiek paisaia **aldatzen** duten bezalaxe. Lander Garro

Eta begibistakoa da idazteko ahalmena esku batzuetatik beste esku batzuetara pasatzen denean, adostasuna ere **aldatzen** dela. Jon Alonso

Kontatzen zen buhameek hapamapalapa hizkuntzaz gain, ezkontzeko ohitura berezia zutela: alabaina, pegarra hausten zuten eta lurrean hedatu zati kopuruaren arabera emaztea gizonarekin egoten zen, gero **alda** zezakeen, edo berdin batekin edo bestearekin ibil zitekeen, eta ez zitzaien nehondik bekatu. Itxaro Borda

Gauetik egunera bezalako aldaketa gertatu baitzitzaidan, aitak bere niganako jarrera **aldatu** zuenean, futbol-izar bat izango nintzela iragarrita gero. Joan Mari Irigoien

Handik aitzina, gauzak **aldatu** ziren, eskolan berriz mintzatzen ahal izan ginen nahi genuen bezala eta gainera, ezin sinetsia!, hizkuntzaren erakusten hasi ziren. Aurelia Arkotxa

Garaiak **aldatzen** dira, belaunak mudatzen, baina itxuraz bakarrik; lehengoan dirau gizonak: bizitzaren eta heriotzaren misterioak harrapatuta. Imanol Zurutuza

Urteak joan doaz eta tokiak **aldatu** egiten dira, baina usaina beti berbera da. Jesus Mari Mendizabal

Azkeneko urteetan, ordea, zertxobait **aldatzen** hasi zen Maupassanten produkzioa. Josu Zabaleta

Euskaratu gabe **aldatuko** dugu hona, dioena bezain garrantzitsu iritzi baitiogu esateko moduari: J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Entzuten ari nintzela konturatuz gero berehala isilduko ziren edo **aldatuko** zuten gaia. Joseba Sarrionandia

Hegazkinaren airatzea bukatu zelarik eta bere alabak eskua utzi ziolarik, Mikel bere aitzineko aulkiaren sarean kokatu aldizkaria hasi zen irakurtzen, ideien **aldatzeko**. Ramuntxo Etxeberri

Diodan komunio horrek gauza bat ekarri du ona: komunetako panorama **aldatu** du. Iñaki Segurola

Hil nazazue edo onar nazazue naizen bezala, ni ez naiz **aldatuko** eta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zirkunstantziak **aldatuz**, agian balioko dute gero ere, tradizioaren indarrez, baina beren jatorrizko esanahia **aldatu** egiten da. Joxe Azurmendi

Eta ez da **aldatuko**, zaharregia da horretarako. Oskar Arana

Bakoitzak gorputz bat daukagu, eta hori ere **aldatu** egiten da, eta hainbat eraginen mendean dago. Luis Elberdin

Jarrera **aldatu** zuen iratze altuen artean. Alberto Ladron Arana

Lortu ondoren, hasiera batean ingeles filologia ikasten hasi zen, baina gero japoniar filologiara **aldatu** zen. Ibon Uribarri

Urteen poderioz sakonen **aldatzen** dena ez da oraina ezta etorkizuna ere, iragana baizik. Iban Zaldua

Komenentziazko militante asko omen zebilen, haizea nora karneta hara egiten zuena, eta haizea **aldatzen** bazen organizazioak pagatuko zuela: militante libertario zintzoek. Inazio Mujika Iraola

Alderdi beltz horiek idazlearentzat eta irakurlearentzat ere hunkigarrienak direlako **aldatu** ditut liburu honetara. Gotzon Garate

Gogotik erantzun ziguten, baina harrian jo zuten haragi bala haiek: historia **aldatzen** ahal zen. Koldo Izagirre

Edorta... betiko legez dago, ez da batere **aldatu**, hamar kilo gutxiago gorabehera, noski. Sonia Gonzalez

Urruntasunak aipatzen ditugularik, Patri, gauzak nola **aldatu** diren datorkit gogora. Hasier Etxeberria

Eta hori zinez sinesten dutenei, arima **aldatu** behar ote zaie? Markos Zapiain

Eta partidaren norabidea **aldatzen** asmatzen ari zen, inork ez zekiela behar bezala erantzuten. Jon Alonso

Bitxikeria da hori ere, jendea nola kanbiatzen ahal den, erran nahi dut jendearen sentimenduak nola **aldatzen** ahal diren. Janbattitt Dirassar

Eta ez zuen Eusko Armadak egoera hori **aldatuko**. Itxaro Borda

Aldatu ezin diren gauzei aurre egiteko konfiantza, **aldatzeko** modukoak direnak **aldatzeko** kemena, eta batzuk besteetatik bereizteko zuhurtzia. Joxerra Garzia

Nire aldetik ez nuen proiektua **aldatzeko** inolako asmorik. Joseba Urteaga

Irun erori eta muga itxi zenean, aurrena Donostiara eta gero Bilbora **aldatu** zen iheserako portua. Jokin Urain

2 du *ad* landarez mintzatuz, landatu.

Herri epeletako landareak **alda** daitezke haietan, laranjondoak eta limoiondoak besteak beste. Koro Navarro

Aldirietako gune hartan, Ameriketako haritzak, udazkenean gorritu egiten diren horietakoak, **aldatu** zituzten. Joxan Elosegi

Horra hor mantel gainean adaska; horra hor nere pintura; erdira **aldatu** behar dut zuhaitza; hori axola zait - besterik ez. Anton Garikano

Eta, hala, Sanmarkeko mila urtetako pago zahar guztiak errotik moztu, eta pinuak **aldatu** zituen, pinus insignis hosto-ilunak, doluzko zapi bat bezala zabaldu zirenak lehenengo aldiz Liputzeko eskualdean. Joan Mari Irigoien

Lur bigunera **aldatuta** arbola mardul bilakatzen den haziaren antzeko dugu kimu ttipi hori. Imanol Unzurrunzaga

Baimena? Ezer ez dagoen lekuan, arbola bat **aldatzeko** ere baimena behar al da? Pablo Sastre

Bekatari zailduek, bekatuaren atzaparretan behin eta berriro erortzen ziren bekatari azal-lakartuek, aita Romeroren penitentziak konplituz, kafe-landareak **aldatu** zituzten beren lurraldeetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lurrak bedeinkatzean ere lizar adaskak sartzen ziren han hemen, eta borda inguruko muga sakratuak zaintzeko lizar landareak **aldatu**. Patziku Perurena

53 Izan bitez, baina, beti arduratsu eta begiratuak, bai karguan dagoena bai beste ahizpak, ez dezaten toki haren inguruan erosi edo hartu, baratzetarako behar-beharrezkoa den baino lur gehiago, han barazkiak **alda** ditzaten. Askoren artean

Nahikoa izan zen atso hura aurrean txilioka ikustea, biok lurrean, inguruan letxugak eta porruak eta tipulak, **aldatzeko** tenorea zela ulertzeko. Iñaki Iñurrieta

Elurra eta uholdeak amaitu bezain laster, ugaritu egiten dira zereginak: han gabarrak kargatu, hemen basoa inausi, soroetan zuhaitzak **aldatu**, eta sail guztiak aitzurtu. Jose Morales

3 (-z atzizkiaren eskuinean)

Abiatu bezain laster gutarik batek ateratzen du linjaz **aldatu** behar dugula, joan aitzin. Marzel Etxehandi

-Ez zara sailez **aldatuko**, hementxe bertan lan egingo duzulako, kontadurian. Joxan Elosegi

Kale kantoian, norabidez **aldatu**, eta, Plazaren zoladura gurutzatu ordez, saihetsera alderatu zen, arkupeetan barrena. Pedro Alberdi

Berak begirada bakar batean memorizatzen zituen aurpegi haiek guztiak eta haien aldaki posible oro: ilea moztuta, kolorez **aldatuta**, bizarrarekin, mustaxarekin, betaurrekoekin edo gabe. Harkaitz Cano

-Gaur mandragorak **aldatuko** ditugu ontziz. Iñaki Mendiguren

Israelgo erregea honela mintzatu zitzaion Josafati: - Nik jantziak **aldatuko** ditut borroka hasteko; zuk jarraitu zeure errege-jantziekin. Israelgo erregea, beraz, jantziz **aldatu** eta borrokara abiatu zen. Elizen arteko biblia

1903an **aldatu** zen etxez Pío Baroja bere familiarekin. Josu Zabaleta

Hala, bada, aro hau bizitzea egokitu zaien biologoak, nerau barne, beharturik egon dira materialez **aldatzera**, are behin baino gehiagotan. Juan Garzia

Orduan B-12k, erabakia harturik, nonbait, jarreraz **aldaturik**, isilarazi eta argi hitz egin zigun. Jon Alonso

-Eta etxez **aldatuko** bagina? -iradoki zion behin amaginarrebari. Anton Garikano

Eta beti bezala, gosaldutakoan abiatu, baina orduko horretan hemisferioz, meridianoz edo galaxiaz **aldatuta** nengoenez, etxerantz, etxetik beharrean. Joxean Sagaztizabal

Etxez eta bizimoduz **aldatzea**, bertzalde, ez litzateke aita-amen edo Luzienen gustukoa. Xabier Montoia

Ia egunero, kolerez ez ezik, bernako lekuz ere **aldatuko** zuen tirita. Edorta Jimenez

4 (era burutua izenondo gisa)

ERCren asmoa Madrilen (Espainia) onartutako testu **aldatuari** errefusa adieraztea eta Kataluniako Legebiltzarrak iazko irailean onartutako testuaren alde egitea da. Berria - Mundua

Zabaldu ziren ezpainak; eta esangura bitxiko irribarre batean, begibistara azaldu ziren pixkana Berenize **aldatu** haren hortzak. Koro Navarro

5 (adizlagunekin)

Dena dela, erraz **alda** daitekeen gauza da hori. Antton Olano

Horrek noski gauzak guztiz **aldatzen** ditu. Urtzi Urrutikoetxea

Franco hil zen, PSOE gaur ezkertiar moderatua da, ez da klasista, ez da internazionalista, urteotan hagitz **aldatu** da. Joxe Azurmendi

1914ko Gerra Handiaren hasierak goitik behera **aldatu** zuen, ordea, Saint-Exupéryren bizitza, europar gehienena bezala. Josu Zabaleta

ETAren sorrera euskal politika betiko **aldatu** zuen gertakaria izan bazen, orain ETAren amaiera da benetako gertakari. Joseba Zulaika

Parisen jaio zen, 1840ko apirilaren 2an, baina laster **aldatu** zen Aix-en-Provencera familiarekin, haren aita François Zola ingeniari veneziarra edateko ura hirira eramateko kanal bat eraikitzen ari zelako. Karlos Zabala

Intxaurraren itzalak lehengo itxura badu ere, zeharo **aldatua** dago inguru hura: kamioien aparkalekua dago orain bertan, hormigoi-fabrika eraiki baitzuten aspaldi etxearen aurrean. Xabier Etxabe

Hala, gauzak arrunt **aldatu** zaizkigu urte gutxian. Iñigo Aranbarri

Egia da laster **aldatu** dugula gaia; baina egia da, halaber, neure baitan alkohola eta hitz haiek borborka sentitu ditudala. Patxi Zubizarreta

Urteen joan-etorriek erakutsi dute gizakiak aiseago **aldatzen** duela aginpide moldea, legea bera baino. Andres Urrutia

Urte gutxi barru erabat **aldatuko** dute haur horiekiko jarrera, seme-alaba haziak galtzeko arriskuak are zaharrago sentiaraziko dituenean. Pako Aristi

Horretarako, ordea, errotik **aldatu** beharko ditugu denok -eta, bereziki, maila bateko edo besteko agintea dutenek- gure pentsamolde eta jokabideak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Mendea franko **aldatua** da, gaur da triste eta goibela, // antolatzaileek nonbait nahi dute denok nazka gaitezela. Xabier Olarra

Gauzak agudo **aldatu** ziren Kamarada! Itxaro Borda

Baina garaiak izugarri **aldatu** dira: epiduralarekin, akabo samina, eta madarikazioaren bigarren zatiari buruz, zer esango dizuet: gure etxean ez da sekula bete. Iban Zaldua

6 ***aldatu gabe*** ik **aldagabe**.

Bakarra izanda ere, dena dezake; bera **aldatu gabe**, den-dena eraberritzen du. Elizen arteko biblia

Nabariko ote dute aldaketarik guregan neguko hilabete gogorrenen ostean, ala **aldatu gabe** aurkituko gaituzte, betikoturik betikoan? Hasier Etxeberria

Lehen arrazoia da, heretikoak nehon baino ausartago ari direnean Aita Sainduen, Kontzilioen, eta Ohitura Apostolikoen legeak hausten, nehon baino gogorrago atxiki behar dira batere **aldatu gabe**. Piarres Xarriton

Gure hiztegiak batere **aldatu gabe** zegoela ematen zuen, baina gure hitzek, sustantzia guztia galdua baitzuten, irteerarik gabeko kontraesanetara eramaten gintuzten, erabili nahi baldin bagenituen. Josu Zabaleta

Horrek erran nahiko du beraz, erretretei lotua den Barne Produktu Gordinaren partea emendatuko dela, baina urtesarien heina **aldatu gabe**. Herria

Joxek atea bultzatzeari ekin dionetik, Abel, soilunetik **aldatu gabe**, legarrezko bidea zelatatzen ari da. Pello Lizarralde

Eta askotan hortxe egoten da egun osoan, inora **aldatu gabe**, ordutan barrena geldi, tabernako atera adi. Txillardegi

Hor ikusten dugu nola Izaki konposatu bat asko gisetara hunkitzen ahal den haren izaera **aldatu gabe** batere. Piarres Xarriton

7 ***eskuz aldatu*** *(orobat* ***eskuzaldatu*** *g.er.)*

Atzo 400.000 akzio baino gutxiago **eskuzaldatu** ziren. Berria - Ekonomia

Autobidearen ardura **eskuz aldatu** da. Herria

Ziklismoaren agintea **eskuz aldatzen** ari da pixkanaka-pixkanaka. Berria - Kirola

Madrilek lan, gizarte segurantza eta immigrazio politikari dagozkion eskumenak **eskuz aldatuko** balitu, etorkizuneko arazoei «are eta modu eraginkorragoan» aurre egingo liokeela. Berria - Ekonomia

Borrokaren lekukoa **eskuz aldatu** da. Berria - Harian

Feudoak bizi artekoak zirenean, nork bere burua gomendatzen zuen feudo baterako, eta **eskuz aldatzeak** -zetroaz egiten zen- berretsi egiten zuen feudoa, omenaldiak egun egiten duen bezala. Iñaki Iñurrieta

Israelen, antzina, jabegoa erosi edota jabego-eskubidea **eskuz aldatzen** zenean, honela egin ohi zen: saltzaileak oinetako bat erantzi eta erosleari ematen zion.

Euskal Herriko kazetak ekarri zuen berria: ADA Baionako portu hegiko altzairutegia **eskuz aldatzera** doala. Herria

8 *iritziz aldatu*

Hau lorategietako aterantz abiatu zen, baina **iritziz aldatu** zuen, antza. Karlos Zabala

Denverrek **iritziz** aldatu zuen, nolabait esatearren. Anton Garikano

Nolanahi ere, **iritziz aldatzen** bazara, deitu hotelera eta elkarrekin joango gara afaltzera. Bernardo Atxaga

Iritziz aldatuko ote nintzen beldurrez. Monika Etxebarria

9 *lekuz aldatu* ik **lekualdatu**.

Museo batean koadro baten aurrean **lekuz aldatzen** garenean, ez dugu irudi haren barruan ez mugimendu paralaxiarik ez perspektiba dinamikorik sumatzen. Josu Zabaleta

Lege honek dioenez, elementu batzuk aldi berean **lekuz aldatuz** baldin badoaz, unitate bezala pertzibitzen dira, eta forma bakarra osatzen dute joera gisa. Josu Zabaleta

Laino-adarra ere **lekuz aldatu** eta atzealdean kokatu zen. ez da guztiz zehatza bihotza "mugitzen dela" esatea, ez baita **lekuz aldatzeko** mugimendurik egiten. Elizen arteko biblia

· Pixkana-pixkana aulkia **lekuz aldatu** zuen, harik eta gelako aterantz begira jarri zen arte. Koro Navarro

Lehenik, pasiboa sortzeko izen sintagmak **lekuz aldatzea** beharrezkoa ote den galdetzen dugu. Itziar Laka

Altxatu eta **lekuz aldatu** behar izan zituen maletak. Mirentxu Larrañaga

Hurrengo egunean **lekuz aldatu** gintuzten, eta Ziburun jarri ginen. Rafa Egiguren

10 *mandoak aldatu* kontuak aldatu.

Orduan dira **mandoak** aldatu eta bote falta batekin galdu ondarra Aranburuk. Herria

11 *mundu honetatik bestera aldatu*

Mundu honetatik bestera aldatzerakoan, hildakoak zakurra izango du gidari. Gotzon Garate

12 *ohea aldatu*

Ohea aldatzeko maindireak. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

aldatu ahal (36); **aldatu ahal izateko** (21); **aldatu ahala** (14); **aldatu al** (29); **aldatu al da** (18); **aldatu arren** (22); **aldatu arte** (8); **aldatu aurretik** (8); **aldatu azken** (8); **aldatu baino** (17); **aldatu baino lehen** (8); **aldatu behar** (345); **aldatu behar da** (22); **aldatu behar dela** (26); **aldatu behar dira** (11); **aldatu behar direla** (13); **aldatu behar du** (14); **aldatu behar dugu** (15); **aldatu behar dute** (10); **aldatu behar izan** (76); **aldatu beharko** (132); **aldatu beharko da** (10); **aldatu beharko du** (17); **aldatu beharko dute** (10); **aldatu beharko litzateke** (10); **aldatu beharko luke** (8); **aldatu beharra** (84); **aldatu beharra dago** (27); **aldatu beharra dagoela** (9); **aldatu beharrean** (14); **aldatu beharrik** (11); **aldatu berri** (12); **aldatu da** (310); **aldatu da azken** (12); **aldatu da eta** (12); **aldatu dela** (67); **aldatu den** (38); **aldatu dena** (12); **aldatu diote** (8); **aldatu dira** (157); **aldatu dira eta** (12); **aldatu dira gauzak** (15); **aldatu direla** (21); **aldatu diren** (43); **aldatu ditu** (26); **aldatu dituzte** (42); **aldatu du** (117); **aldatu duela** (26); **aldatu duen** (21); **aldatu dugu** (17); **aldatu dut** (16); **aldatu dute** (70); **aldatu dutela** (17); **aldatu duten** (8); **aldatu edo** (27); **aldatu egin** (463); **aldatu egin behar** (38); **aldatu egin beharko** (30); **aldatu egin da** (60); **aldatu egin dela** (18); **aldatu egin dira** (62); **aldatu egin direla** (12); **aldatu egin du** (15); **aldatu egin dute** (9); **aldatu egin nahi** (9); **aldatu egin zen** (53); **aldatu egin ziren** (15); **aldatu egin zuen** (25); **aldatu egin zuten** (8); **aldatu egingo** (85); **aldatu egingo da** (18); **aldatu egingo dela** (9); **aldatu egingo dira** (9); **aldatu egiten** (197); **aldatu egiten da** (58); **aldatu egiten dela** (11); **aldatu egiten dira** (52); **aldatu egiten direla** (13); **aldatu egiten du** (8); **aldatu ere** (13); **aldatu eta** (302); **aldatu eta beste** (10); **aldatu ez** (58); **aldatu ez den** (10); **aldatu ezean** (59); **aldatu ezin** (17); **aldatu gabe** (122); **aldatu genuen** (8); **aldatu izan** (14); **aldatu izana** (19); **aldatu izanak** (13); **aldatu nahi** (221); **aldatu nahi du** (21); **aldatu nahi duela** (8); **aldatu nahi dute** (14); **aldatu nahi izan** (14); **aldatu nahi izatea** (11); **aldatu nintzen** (17); **aldatu nuen** (14); **aldatu ohi** (11); **aldatu omen** (13); **aldatu ondoren** (16); **aldatu ordez** (8); **aldatu ote** (28); **aldatu zaio** (14); **aldatu zela** (14); **aldatu zen** (222); **aldatu zen eta** (10); **aldatu zenean** (10); **aldatu zion** (9); **aldatu zioten** (12); **aldatu ziren** (75); **aldatu zituen** (35); **aldatu zituzten** (26); **aldatu zitzaion** (25); **aldatu zuela** (14); **aldatu zuen** (188); **aldatu zuen eta** (8); **aldatu zuenean** (11); **aldatu zutela** (13); **aldatu zuten** (94); **aldatu zutenean** (8)

aldiz aldatu (23); **anitz aldatu** (9); **apur bat aldatu** (10); **arabera aldatu** (13); **arauak aldatu** (14); **araudia aldatu** (19); **arras aldatu** (19); **arropa aldatu** (12); **arropak aldatu** (11); **arropaz aldatu** (10); **asko aldatu** (186); **asko aldatu al** (10); **asko aldatu beharko** (9); **asko aldatu da** (42); **asko aldatu dela** (8); **asko aldatu dira** (53); **askorik aldatu** (15); **aurpegia aldatu** (21); **aurpegia aldatu zitzaion** (8); **aurpegiera aldatu** (11); **azkar aldatu** (8); **baina aldatu** (10); **baino gehiagotan aldatu** (9); **baldintzak aldatu** (8); **bat aldatu** (44); **bat aldatu behar** (10); **batean aldatu** (8); **batera aldatu** (30); **batere aldatu** (41); **batere aldatu gabe** (10); **batetik bestera aldatu** (11); **batzuk aldatu** (15); **behera aldatu** (57); **bera aldatu** (11); **bera ere aldatu** (8); **berehala aldatu** (9); **berriro aldatu** (8); **bestera aldatu** (12); **bizimodua aldatu** (12); **bizitza aldatu** (13); **da aldatu** (88); **da batere aldatu** (8); **da ezer aldatu** (18); **dela aldatu** (21); **dena aldatu** (45); **dena aldatu da** (12); **dena aldatu zen** (11); **deus aldatu** (19); **dezente aldatu** (18); **dezente aldatu da** (11); **dira aldatu** (19); **du aldatu** (16); **dute aldatu** (10); **edo aldatu** (13); **egoera aldatu** (64); **egoera aldatu da** (11); **egoera aldatu egin** (16); **egoera erabat aldatu** (9); **eguraldia aldatu** (8); **entrenatzailea aldatu** (12); **era aldatu** (8); **erabakia aldatu** (10); **erabat aldatu** (112); **erabat aldatu da** (17); **erabat aldatu du** (9); **erabat aldatu zen** (22); **erabat aldatu zuen** (8); **ere aldatu** (165); **ere aldatu da** (22); **ere aldatu du** (9); **ere aldatu egin** (31); **ere aldatu egiten** (19); **eredua aldatu** (16); **ereduak aldatu** (8); **erritmoa aldatu** (9); **errotik aldatu** (40); **errotik aldatu behar** (10); **eskuz aldatu** (15); **espetxez aldatu** (18); **estrategia aldatu** (13); **eta aldatu** (67); **eta aldatu egin** (18); **eta aldatu egiten** (8); **etxez aldatu** (17); **ez aldatu** (12); **ez da aldatu** (73); **ez dela aldatu** (19); **ez dira aldatu** (13); **ez du aldatu** (12); **ez zen aldatu** (14); **ezer aldatu** (68); **ezer gutxi aldatu** (17); **ezertan aldatu** (15); **ezin da aldatu** (11); **gaia aldatu** (19); **garaiak aldatu** (13); **gauza aldatu** (11); **gauza asko aldatu** (23); **gauza batzuk aldatu** (9); **gauzak aldatu** (100); **gauzak aldatu dira** (15); **gauzak aldatu egin** (36); **gauzak aldatu egiten** (11); **gauzak asko aldatu** (37); **gehiagotan aldatu** (9); **gehiegi aldatu** (15); **gizartea aldatu** (14); **gobernua aldatu** (9); **goitik behera aldatu** (55); **gutxi aldatu** (29); **gutxi aldatu da** (11); **guztia aldatu** (11); **guztiak aldatu** (10); **guztiz aldatu** (35); **hainbeste aldatu** (14); **harremanak aldatu** (9); **hau aldatu** (12); **helburuak aldatu** (8); **hori aldatu** (65); **hori aldatu egin** (12); **hori aldatu nahi** (10); **horiek aldatu** (14); **ibilbidea aldatu** (10); **ideiaz aldatu** (8); **iritzia aldatu** (33); **iritziz aldatu** (39); **iritziz aldatu eta** (10); **irizpideak aldatu** (9); **itxura aldatu** (10); **izaera aldatu** (10); **izena aldatu** (64); **izena ere aldatu** (10); **izugarri aldatu** (11); **jarrera aldatu** (104); **jarrera aldatu behar** (11); **jarrera aldatu ezean** (14); **jitez aldatu** (14); **kartzelaz aldatu** (8); **konstituzioa aldatu** (32); **legea aldatu** (41); **legeak aldatu** (13); **lekuz aldatu** (75); **modua aldatu** (25); **mundua aldatu** (22); **nabarmen aldatu** (37); **nabarmen aldatu da** (14); **naiz aldatu** (8); **nola aldatu** (53); **nola aldatu den** (10); **nola aldatu diren** (14); **norabidea aldatu** (41); **norabidea aldatu eta** (8); **norabidez aldatu** (10); **ohiturak aldatu** (18); **ordena aldatu** (10); **osoa aldatu** (12); **osoki aldatu** (10); **plana aldatu** (8); **politika aldatu** (28); **politikoa aldatu** (21); **preso espetxez aldatu** (9); **sistema aldatu** (36); **taktika aldatu** (10); **taldez aldatu** (10); **tokiz aldatu** (19); **txipa aldatu** (10); **zeharo aldatu** (42); **zeharo aldatu da** (8); **zen aldatu** (17); **zenbat aldatu** (10); **zer aldatu** (44); **zer aldatu da** (20); **zerbait aldatu** (38); **zergatik aldatu** (21); **zertan aldatu** (26); **zertan aldatu da** (9)

aldatua da (8); **aldatua izan** (13); **aldatua zen** (20); **aldatuko al** (8); **aldatuko al** (8); **aldatuko da** (65); **aldatuko da** (65); **aldatuko dela** (17); **aldatuko dela** (17); **aldatuko denik** (11); **aldatuko denik** (11); **aldatuko dira** (34); **aldatuko dira** (34); **aldatuko direla** (12); **aldatuko direla** (12); **aldatuko dituela** (8); **aldatuko dituela** (8); **aldatuko du** (55); **aldatuko du** (55); **aldatuko duela** (30); **aldatuko duela** (30); **aldatuko duen** (16); **aldatuko duen** (16); **aldatuko duenik** (9); **aldatuko duenik** (9); **aldatuko dut** (19); **aldatuko dut** (19); **aldatuko dute** (26); **aldatuko dute** (26); **aldatuko eta** (11); **aldatuko eta** (11); **aldatuko ez** (21); **aldatuko ez** (21); **aldatuko litzateke** (15); **aldatuko litzateke** (15); **aldatuko luke** (8); **aldatuko luke** (8); **aldatuko ote** (10); **aldatuko ote** (10); **aldatuko zen** (12); **aldatuko zen** (12); **aldatuko zuela** (10); **aldatuko zuela** (10); **aldatuko zuen** (10); **aldatuko zuen** (10); **aldatuta ere** (8); **aldatuta zegoen** (11); **aldatuz doa** (11); **aldatuz doaz** (9); **aldatuz eta** (11); **aldatuz gero** (28); **aldatuz joan** (35); **aldatuz joan zen** (8); **aldatuz joaten** (12); **asko aldatuko** (15); **asko aldatuko** (15); **bat aldatuta** (9); **behera aldatuko** (8); **behera aldatuko** (8); **da aldatuko** (23); **da aldatuko** (23); **dela aldatuko** (11); **dela aldatuko** (11); **dena aldatuko** (8); **dena aldatuko** (8); **deus aldatuko** (12); **deus aldatuko** (12); **dira aldatuko** (10); **dira aldatuko** (10); **duela aldatuko** (9); **duela aldatuko** (9); **dutela aldatuko** (11); **dutela aldatuko** (11); **egoera aldatuko** (12); **egoera aldatuko** (12); **erabat aldatua** (9); **erabat aldatuko** (25); **erabat aldatuko** (25); **ere aldatuko** (30); **ere aldatuko** (30); **ere aldatuz** (11); **etengabe aldatuz** (12); **ez da aldatuko** (23); **ez da aldatuko** (23); **ez dela aldatuko** (10); **ez dela aldatuko** (10); **ez dira aldatuko** (9); **ez dira aldatuko** (9); **ez duela aldatuko** (9); **ez duela aldatuko** (9); **ez dutela aldatuko** (11); **ez dutela aldatuko** (11); **ezer aldatuko** (25); **ezer aldatuko** (25); **gauzak aldatuko** (24); **gauzak aldatuko** (24); **hori aldatuko** (12); **hori aldatuko** (12); **jarrera aldatuko** (30); **jarrera aldatuko** (30); **jarrera aldatuko duela** (9); **jarrera aldatuko duela** (9); **lekuz aldatuko** (14); **lekuz aldatuko** (14); **lekuz aldatuta** (8); **oso aldatuta** (13); **tenoreak aldatuak** (8); **zeharo aldatuko** (8); **zeharo aldatuko** (8); **zer aldatuko** (10); **zer aldatuko** (10); **zoria aldatuko** (15); **zoria aldatuko** (15); **zoria aldatuko dut** (10); **zoria aldatuko dut** (10)

aldatze aldera (9); **aldatzea da** (24); **aldatzea dela** (8); **aldatzea erabaki** (72); **aldatzea erabaki du** (18); **aldatzea erabaki zuen** (19); **aldatzea erabaki zuten** (9); **aldatzea ere** (11); **aldatzea eskatzen** (13); **aldatzea espero** (14); **aldatzea eta** (36); **aldatzea ez** (16); **aldatzea nahi** (8); **aldatzea proposatu** (15); **aldatzearen alde** (13); **aldatzeko asmoa** (25); **aldatzeko asmorik** (32); **aldatzeko asmoz** (8); **aldatzeko aukera** (57); **aldatzeko beharra** (14); **aldatzeko edo** (9); **aldatzeko erabakia** (11); **aldatzeko ere** (12); **aldatzeko eskaera** (13); **aldatzeko eskatu** (68); **aldatzeko eskatu du** (11); **aldatzeko eskatu zion** (19); **aldatzeko eskatuko** (9); **aldatzeko eskatzen** (13); **aldatzeko eta** (51); **aldatzeko gai** (18); **aldatzeko garaia** (13); **aldatzeko inolako** (10); **aldatzeko premia** (12); **aldatzeko prest** (27); **aldatzeko proposamena** (19); **arauak aldatzeko** (11); **araudia aldatzeko** (9); **egitura aldatzeko** (8); **egoera aldatzea** (9); **egoera aldatzeko** (39); **ere aldatzea** (8); **eredua aldatzea** (9); **eredua aldatzeko** (10); **errotik aldatzeko** (9); **espetxe politika aldatzeko** (12); **estatutua aldatzeko** (13); **estatutuak aldatzeko** (10); **eta aldatzeko** (23); **etxez aldatzeko** (10); **ez aldatzea** (17); **ez aldatzeko** (18); **gauzak aldatzea** (9); **gauzak aldatzeko** (21); **gizartea aldatzeko** (8); **hori aldatzea** (19); **hori aldatzeko** (45); **ibilbidea aldatzeko** (9); **jarrera aldatzea** (27); **jarrera aldatzeko** (30); **jarrera aldatzeko eskatu** (10); **jarreraz aldatzeko** (10); **konstituzioa aldatzea** (13); **konstituzioa aldatzeko** (24); **legea aldatzea** (16); **legea aldatzeko** (55); **legea aldatzeko eskatu** (11); **lekuz aldatzea** (34); **lekuz aldatzeko** (30); **mundua aldatzeko** (9); **norabidea aldatzeko** (14); **politika aldatzea** (11); **politika aldatzeko** (35); **politika aldatzeko eskatu** (8); **politikoa aldatzeko** (15); **sistema aldatzea** (19); **sistema aldatzeko** (12); **tokiz aldatzea** (15)

aldatzen ahal (15); **aldatzen al** (8); **aldatzen ari** (208); **aldatzen ari da** (56); **aldatzen ari dela** (24); **aldatzen ari den** (14); **aldatzen ari dira** (24); **aldatzen ari direla** (12);

aldatzen ari zela (8); **aldatzen ari zen** (11); **aldatzen bada** (22); **aldatzen badira** (9); **aldatzen baita** (8); **aldatzen baitira** (12); **aldatzen da** (144); **aldatzen da eta** (8); **aldatzen dela** (24); **aldatzen den** (69); **aldatzen dena** (21); **aldatzen denean** (20); **aldatzen dira** (105); **aldatzen dira gauzak** (8); **aldatzen direla** (16); **aldatzen diren** (36); **aldatzen direnean** (13); **aldatzen ditu** (20); **aldatzen dituzte** (15); **aldatzen du** (59); **aldatzen duela** (12); **aldatzen duen** (21); **aldatzen dute** (29); **aldatzen duten** (15); **aldatzen ere** (10); **aldatzen eta** (41); **aldatzen ez** (103); **aldatzen ez bada** (13); **aldatzen ez badira** (9); **aldatzen ez badu** (14); **aldatzen ez den** (13); **aldatzen ez diren** (10); **aldatzen hasi** (38); **aldatzen hasi zen** (8); **aldatzen hasi ziren** (9); **aldatzen hasiak** (9); **aldatzen hasteko** (10); **aldatzen joan** (19); **aldatzen saiatu** (10); **aldatzen saiatzen** (8); **aldatzen zen** (28); **aldatzen ziren** (18); **aldatzen zituen** (10); **aldatzen zuen** (29); **aldatzera behartu** (13); **aldatzerik ez** (8); **aldatzerik nahi** (9); **arabera aldatzen** (31); **arabera aldatzen da** (9); **ari da aldatzen** (9); **asko aldatzen** (59); **asko aldatzen da** (16); **asko aldatzen dira** (18); **aurpegia aldatzen** (8); **bat aldatzen** (25); **batean aldatzen** (8); **batera aldatzen** (16); **batetik bestera aldatzen** (19); **bestera aldatzen** (21); **beti aldatzen** (8); **da aldatzen** (42); **dela aldatzen** (10); **dena aldatzen** (24); **dena aldatzen da** (11); **deus aldatzen** (11); **dira aldatzen** (14); **egoera aldatzen** (31); **egoera aldatzen ari** (8); **erabat aldatzen** (19); **ere aldatzen** (41); **ere aldatzen ari** (12); **eta aldatzen** (25); **etengabe aldatzen** (31); **ez da aldatzen** (22); **ez dela aldatzen** (10); **ez dira aldatzen** (9); **ezer aldatzen** (21); **gauzak aldatzen** (72); **gauzak aldatzen ari** (25); **gauzak asko aldatzen** (8); **gizartea aldatzen** (9); **gutxi aldatzen** (9); **hori aldatzen** (18); **iritzi aldatzen** (10); **jarrera aldatzen** (23); **jarrera aldatzen ez** (12); **lekuz aldatzen** (46); **maiz aldatzen** (12); **mundua aldatzen** (10); **nola aldatzen** (34); **nola aldatzen den** (12); **nola aldatzen diren** (11); **ohiturak aldatzen** (11); **tokiz aldatzen** (9); **zeharo aldatzen** (9); **zen aldatzen** (14); **zer aldatzen** (9)

---

aldatuarazi ik **aldarazi**.

---

aldatugabe ik **aldagabe**.

---

aldatz ik **aldats**.

---

aldatzaile *izond* aldatzen duena.

Gertakariak subjektuarengan hasi duen prozedura **aldatzailea** ez da amaitzen, izaeraren multiplizitatearekin du zerikusirik, eta azkenik pentsamenduak berea duen infinituarekin lotua dago. Joseba Zulaika

---

aldatze **1** *iz* zerbaiten edo norbaiten ordez kideko bat jartzea edo hartzea.

Lehen kanpoa osoki emokatua eta zuritua zitekeen, zernahi gisaz nabari da eliza hau ez dela kolpe batez egina, baina mendez mende ekarriak izan zaizkiola haunditze, **aldatze** eta berritze frango. Michel Oronoz

Itxura bat errealitatearen plano batetik bestera bat-batean eta kontrolatu ezinezko moduan **aldatze** hori, bere estatua mugiarazten duen Santuak egiten duen mirariaren gisako bat da. Josu Zabaleta

Inork ez ditu argitu modaren **aldatze** horiek; dakigun gauza bakarra da psikologoak hainbeste kezkatzen dituzten imitazioaren legeen mendean daudela moda aldatzeak. Isabel Arrigain

Gogoangarria izan zen osabarekin iragan eguna, eta ez nuen, beraz, **aldatze** hartan pentsatzeko motiborik ez arrazoinik. Joan Mari Irigoien

Esandako hau egia dela frogatzeko, aski dugu gogoratzea termino baten balioa alda daitekeela haren esanahia eta hotsak aldatu gabe, inguruko terminoren baten **aldatze** soilarengatik. Isabel Arrigain

Tomek atsegin zuen laster pentsatu behar izatea, eta pizgarria zitzaion bere adimena -**aldatze** hutsagatik- ezohiko bidetik ibiltzera behartu beharra, erne ibili beharra. Oskar Arana

Ingurumariko harri guziak bildu, eta eskuz esku, lekuz **aldatze** hutsarekin, bat bakarrik ere baztertu gabe, on eta txar, denak aintzat hartu eta denak elkarri laguntzen ipiniz, bakoitzaren gorputz eta arima ukitu ere egin gabe, horra gizonak egindako obrarik harrigarriena: harri huts hutsezko pareta. Patziku Perurena

2 (hitz elkartuetan)

Julian Lasaren hiletatik bueltan Zaperoren historia izan zen bezalaxe kontatzera deliberatuta etorri nintzenean, madarikatu egin nuen ordenagailu bat eduki ez izana, askoz errazagoa izango baitzen **aldatze**-lan hori.Tradizio judu-kristauan izen **aldatze** horrek berebiziko garrantzia dauka, bizimodu berri baten hasiera adierazi nahi baitu. Xabier Mendiguren Elizegi

Gerra, etxe-**aldatze** eta erbestera premia guztiengatik ere, hantxe zegoen, mirariz, amaren aldeko familiako hainbat belaunalditako emakume ezkonberrien arreoaren parte bat. Joxan Elosegi

Fraideon artean hiru urtetik behin egiten dugun kargu **aldatze** horietako batean, beste hainbat kargu eta enkargu nola zamatu zizkioten, tartean Arantzazuko Koruaren zuzendaritza, besteak beste, eguraldi txartelak betetzea ikasleen esku utzi bide zuen. Pello Zabala

3 *itxura-aldatze* ik **itxuraldatze**.

4 ***eskuz aldatze***

Espainia-karrikako Martocq-Etcheverry joaieria-saltegiak jakinarazten du **eskuz-aldatze** bat ezagutuko duela egun hautan. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldatze aldera (9); **aldatze bat** (6); **aldatze hori** (6); **aldatze horiek** (4); **izen aldatze** (4); **lekuz aldatze** (6)

aldatzea aztertuko (3); **aldatzea aztertzen ari** (3); **aldatzea beharrezkoa** (6); **aldatzea da** (24); **aldatzea dela** (8); **aldatzea edo** (7); **aldatzea ekarri zuen** (3); **aldatzea ekarriko** (4); **aldatzea erabaki du** (18); **aldatzea erabaki dute** (3); **aldatzea erabaki nuen** (5); **aldatzea erabaki zuen** (19); **aldatzea erabaki zuten** (9); **aldatzea erabakita** (3); **aldatzea eragin** (3); **aldatzea ere** (11); **aldatzea erredakzioa** (3); **aldatzea esan nahi** (5); **aldatzea eskatu** (4); **aldatzea eskatuko** (3); **aldatzea eskatzen badu** (3); **aldatzea espero du** (4); **aldatzea espero duela** (3); **aldatzea ez da** (7); **aldatzea ezinbestekoa** (5); **aldatzea ezinezkoa** (3); **aldatzea galdegin** (4); **aldatzea hobetsi du** (4); **aldatzea izan** (4); **aldatzea izaten** (3); **aldatzea komeni** (3); **aldatzea lortu** (7); **aldatzea nahi** (8); **aldatzea onartu** (3); **aldatzea oso zaila** (3); **aldatzea proposatu du** (4); **aldatzea proposatuko** (3); **aldatzea suposatuko** (3); **aldatzea zaila** (5); **aldatzea zen** (6); **asko aldatzea** (3); **batera aldatzea** (3); **bera aldatzea** (3); **bestera aldatzea** (4); **bezala aldatzea** (3); **bidea aldatzea** (3); **bidez aldatzea** (3); **bizimodua aldatzea** (3); **da aldatzea** (3); **du lekuz aldatzea** (3); **duen jarrera aldatzea** (4); **duten jarrera aldatzea** (3); **egoera aldatzea** (9); **egunez aldatzea** (3); **erabat aldatzea** (3); **ere aldatzea** (8); **errealitatea aldatzea** (3); **errotik aldatzea** (6); **eskema aldatzea** (3); **eskuz aldatzea** (3); **espetxe politika aldatzea** (5); **estatutua aldatzea** (3); **estrategia aldatzea** (3); **etorkizuna aldatzea** (3); **etxez aldatzea** (6); **ez aldatzea erabaki** (5); **ezer aldatzea** (4); **gauzak aldatzea** (9); **gizarte eredua aldatzea** (3); **gizartea aldatzea** (4); **gobernua aldatzea** (6); **hauteskunde legea aldatzea** (3); **hori aldatzea** (19); **horiek aldatzea** (5); **hura aldatzea** (4); **ibilbidea aldatzea** (7); **iritzia aldatzea** (3); **iritziz aldatzea** (4); **irudia aldatzea** (3); **ituna aldatzea** (3); **izaera aldatzea** (4); **izena aldatzea** (6); **izenburua aldatzea** (3); **jarrera aldatzea espero** (3); **jarreraz aldatzea** (3); **jokabidea aldatzea** (3); **jokalariak aldatzea** (3); **joko sistema aldatzea** (4); **kodea aldatzea** (3); **konstituzioa aldatzea eskatzen** (3); **leku aldatzea** (3); **mundua aldatzea** (5); **norabidea aldatzea** (7); **ohiturak aldatzea** (7); **oren aldatzea** (3); **pixka bat aldatzea** (3); **politikoa aldatzea** (5); **proiektua aldatzea erabaki** (3); **proposamena aldatzea** (3); **sarri aldatzea** (3); **taldez aldatzea** (5); **tokiz aldatzea** (15); **truke aldatzea** (5); **zer aldatzea** (4); **zerbait aldatzea** (3)

aldatzeak ez (7); **gobernua aldatzeak** (3); **leku aldatzeak** (3); **lekuz aldatzeak** (5)

aldatzearekin batera (7); **legea aldatzearekin** (3); **lekuz aldatzearekin** (3)

aldatzearen alde agertu (5); **aldatzearen aurka** (4); **aldatzearen ondorioz** (4); **lekuz aldatzearen** (3)

aldatzeari buruz (5); **aldatzeari ekin** (4)

aldatzeaz gain (5); **aldatzeaz gainera** (3)

---

aldatzear *adlag* aldatzeko zorian.

Alabaina, **aldatzear** nengoela, hark belaunikatzera behartu nau. Patxi Zubizarreta

Susmoa daukat, beraz, joera **aldatzear** dagoela eta literatura, gero eta gehiago, emakumeen eskuetan geratuko dela. Ana Urkiza

Urria heldu zen, ostera, eta airea **aldatzear** zegoen, eta euriteak eta haizeak berriro hastear. Agustin Otsoa

Garbi dago *statu quo*-a **aldatzear** den guztietan agertzen direla. Berria - Euskal Herria

aldatzearren *adlag* aldatzeko.

Egoera **aldatzearren** egin dizu hori Joabek. Elizen arteko biblia

-Parisera noa bizitzera, **aldatzearren**. Monika Etxebarria

---

aldatzeke *adlag* aldatu gabe.

Neuk orain aipatutako graziak eta dohainak baldin baditut, nire adoreak **aldatzeke** iraungo du bere poztasunean ordu eta egoera guztietan. Joan Mari Lekuona

Amiantoak ur pixka bat galtzen zuen 150°C-ra, gero itxuraz **aldatzeke** zirauen 800°C-ra arte. Juan Garzia

Stalingradon, ikusirik zein nekez eusten zieten sobietarrek alemanei, bururatu zitzaion Zeunerri orkestra, ordu arte bakerako erabilia izan bezalaxe, gerrarako erabil zitekeela, ezer sakonean **aldatzeke**. Felipe Juaristi

Ahotsa fitsik **aldatzeke**, pasatzeko esan zidan Ireneok. Juan Garzia

"Banitate malenkoniatsuz" erabakitzen du berak bere hartan eutsiko diola, sekula **aldatzeke**, munduaren aldakuntza aldagaitzaren mendekuz. Juan Garzia

", eta Bidasoaz haraindikoa zirudien apaizak aurpegiko keinurik **aldatzeke** "bai, nik txorta bat" edo "xorta bat", ezin seguru esan, eskatu dionetik. Iñigo Aranbarri

---

aldatzeko **1** *iz* aldagarria, aldatzen den arropa.

Hara, **aldatzekoa** eta lo egitekoa eramango dut bakarrik. Fernando Morillo

2 ***martxa aldatzeko*** *iz* martxa aldagailua.

Martxa aldatzekoaren alboan zegoen, bere belaunburuetatik hamar zentimetrora. Bernardo Atxaga

---

aldaune *iz* aldatze unea.

Halako batean, leihotik argi gehiago sartu zen, eguzkia laino baten atzetik agertzean bezala, eta itzaletik argirako **aldaune** horretan, aurpegia ikusi nuen tapizean. Iñaki Iñurrieta

---

aldauri *iz* errebala.

Hiriko **aldaurian** etxe batean senar-emazte gazte batzuek droga zutela gaztigatu zioten talde horri. Gotzon Garate

---

aldaxka *(orobat **aldaska**)* **1** *iz* kimua.

Gogoko zuen bere burua lore-hazle ontzat hartzea, betiere **aldaxkez** inguratuta behar zuena egon, benetan zoriontsua izango bazen. eskolako haurrek bi lerrotan ongi etorria egiten daukute oihuka eta eskuen puntan **aldaxka** batzu harrotuz. Mirentxu Larrañaga

Urte horietan sortu ziren Eusko Ikaskuntza lehenik, eta honen **aldaxka** batetik bezala, hizkuntzaz bereziki arduratuko zen akademia. Pello Salaburu

Beti gustatu izan zait **aldaxka** ikustea teilatu gainean. Berria - Kultura

Gaur bertan milaka apio **aldaxka** landatu ditut nire negutegietan eta hemendik aste batzuetara bilduko ditut. Berria - Harian

Denak, gizon, emazte, haur, eliza aitzinean bilduak ziren, metatuak, erramu **aldaxka** bat eskuetan. Michel Oronoz

Haritz-**aldaxkari** begiratu nion. Anjel Lertxundi

Milaka hazik, haztean, belarra itotzen dute; milaka **aldaska** elkarren lehian hasten dira. Felipe Juaristi

Jendeak olibondo eta beste zuhaitz-**aldaska** moztu-berriei eragiten die. Askoren artean

2 irud/hed

Pello aranaztarra Fagoaga-tarren arbasoa etzen guti loriatuko, gogoratzearekin askaziaren ondar **aldaxka**, Sarako pilota plazan ager zitakela egun batez bere aitatxi iduri, xixtera eskuan, osaba bezala. Herria

3 ***adar-aldaxka*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Tankeek geldo-geldo egiten zuten aurrera, **adar-aldaxkez** estalita eta hautsez beteta. ETC-literatura, saiakera

Zin-hitzak izan balira ez nien baliotsuago iritziko aluminio-paperean bilduta jaso ditudan denetariko lore eta barazkien hazi, **adar-aldaxka** eta zuhaitzen mentu-zotzei. ETC-literatura, saiakera

Adar-aldaxkak: landare bati ateratako kimu-adar bat lur hezean edo uretan sartu ondoren, sustraiak ateratzen zaizkio eta horrela lortzen da beste landare bat. ETC-entziklopedia

---

aldaxkatu, aldaxka(tu), aldaxkatzen da/du *ad* aldaxkatan banatu.

Antropologia filosofikoa ez doa jada "gizakia zer da" esentzia metafisiko baten bila; antropologia filosofikoaren ikuspegia orain beste bat da, alegia: (1) krisialdi berberetik garai bertsuan **aldaxkatu** ziren fenomenologiarekin eta/edo hermeneutikarekin uztartua egon ohi da; (2) zientzia berrien ekarpenez baliatu beharra dauka. Askoren artean

---

alde *(ETCn **61.526** agerraldi)* **1** *iz* gauza, toki edo bitarte bati buruz, hartan bereiz daitezkeen zatietako bakoitza; gauzaki edo puntu bati buruz, haren ingurua; hura inguratzen duen bitartetik nolabait bereizten den zatia.

Behin batean ba omen zen Frantzi-ixkiña edo Iparraldeko emakume bat mugaz **alde** honetako jendeen artean solas-lagun, eta hemengoak morboa gora eta morboa behera ari nonbait, eta hala dio emakumeak: zej da mojjboa? Iñaki Segurola

Lotura sendo bat ezarri zuen horrela luzeren eta angeluen artean: bi **alde** berdin, bi angelu berdin! Jon Muñoz

Ederra zen bezeroaren etxea, bakana eta zuhaitzez inguratua, mendia **alde** guztietatik zuena. Joxan Elosegi

Modaz pasatutako piezak dira, **alde** horretatik, esku artean dituzun hauek: egilearen beraren zein beste inoren beste testu batzuen gainean eraikitako testuak. Joxerra Garzia

Asko edan zuen, hala ere; horregatik ez zen gauza izan, lehenago ohi zuen bezala, erabat begi seguruarekin eta pobreziak ematen duen sen horrekin **alde** hartako hotel merkeena bilatzeko. Matías Mujika

Harry Potter mutiko ezohikoa zen **alde** askotatik. Iñaki Mendiguren

Hamarkada mordoxka zen mehelina botarazi zuela, etxearen **alde** hartara aldatu zenean, eta bi gelez bat egin zuen, handiagoa, ilunxeagoa. Xabier Olarra

Alde horretatik, mesede besterik ez dit egin adiskidearekin egindako elkarrizketak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Fusilamendu sobera zegoen bitarte, eta gerraondoaren infernua. A.k lur bedeinkatuan nahi zituen fusilatu guztiak, **alde** bietakoak. Koldo Izagirre

Alde guztietatik begiraturik, bada, erakargarria zen eskaintza. Migel Angel Mintegi

Alde horretatik, anglosaxoniarrak zintzoagoak dira. Txema Ramirez de la Piscina

Alde banatako ohatzetakoei behatu diezu. Xabier Montoia

Baratzera jaitsi, eta bakoitza **alde** banatara abiatu ginen, haren bila. Juan Kruz Igerabide

Bizkitartean, otorduan bospasei gasna xerra mehe, hain mehar non zirudien **alde** bat bakarrik ez zutela, uste zenuen aste batentzat aserik zinela, libertate mikatzaren aitzingela gelberetan sartua, hots! Itxaro Borda

Haren fama -mila zurrumurru, gezur, eta neurririk gabeko ahoberokeriaz apaindua- **alde** guztietara zabaltzen da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Alde bateko horman hamar irudi daude Ama Birjinarenak. Pako Aristi

Parrokiano horiek ez ziren jatetxetik lekutzen zerbitzariek eta nagusiak **alde** egin arte. Matías Múgica

Alde bakarreko gertakariak ditugu mintzagai, hala nola ehiza, bidelapurreria edo itsaslapurreta, trade-tik baino areago, raid-etik gertuago zeudenak. Koro Navarro

Bi **alde** batera eta bi bertzera, beti bezala. Eneko Bidegain

Ume bi, irripartsu; Amama Ixoneren **alde** banatan. Txillardegi

Gurasoek ere ez zidaten sinistu; eta, jakin zutenean benetan eskolatik bota nindutela, sekulako errieta-festa antolatu zidaten: behingoagatik, biak **alde** berera jarri ziren, direnak eta ez direnak nire kontra esateko. Jesus Mari Mendizabal

-Hernialdeko erretore egona, bai, Tolosa **alde** horretan. Txillardegi

Eta zenbat pareta zahar anonimo ikusi ote dute ene begiek, Basaburu **alde** honetatik atera gabe!... Patziku Perurena

Labanaren **alde** biak berriro garbitu zituen, oraingoan jertsearen mahukaren kontra. Anjel Lertxundi

Bide horrek, goiko partean, harrizko zenbait gurutze dauzka **alde** banatan, ermita batean bukatzen direnak, eta behealdean, hirian sartu ondoren, kale bihurtzen da. Koro Navarro

Haren tximino-aurpegiaren **alde** bat erabat zimurtua eta okertua zegoen, eta txarolezko zapata arrakalatu baten puntaz zeraman konpasa. Lopez de Arana

2 *iz* desberdintasuna. ik **diferententzia**; **bestelakotasun**.

Andres Hurtado hartu zuten banderatzat gerora (oraindik orain) eskuin espainolistaren gobernuaren ganbelazale bihurtuta ikusi ditugun batzuek -batzuk besteak baino pikaroago, **alde** gutxirekin hala ere-. Josu Zabaleta

Ez nintzen bertso horietako gizonaren neurriko zurrutero amorratua, baina gainerakoan **alde** handirik ez. Juan Luis Zabala

"Alde ederra litzateke niretzat horrela bizitzea! ", esan zuen Teresak hasperen batez. Bernardo Atxaga

Edo, denboraz eta kulturaz horrenbeste urrundu gabe, halatsu gertatzen zaigu, **aldeak alde**, Axularren Gero obrarekin ere. Patxi Altuna

Bai... Porlanarekin **alde** ederra duk. Pablo Sastre

Pilota baten antzera kiribildu naiz, triku baten moduan, neure burua babestearren, baina ez dirudi **alde** handirik dagoenik. Mirentxu Larrañaga

Alde ederra! Gotzon Garate

Alde ederreko patxada, ume zaharrok porai bidalita! Xabier Mendiguren Elizegi

• **3** *adlag* (-en atzizkiaren eskuinean) aipatzen denari laguntzeko edo on egiteko.

Eta lortuko ez banu, gutxienez zuzentasunaren **alde** hilko nintzateke. Patxi Zubizarreta

Izurritea gertaturik gaitzeko lana egin zuen erien **alde**, kutsatua izateko beldurrik gabe. Xipri Arbelbide

Giro horretan estetika eta filosofi gaietaz mintzatu ziren, eskola frantseseko pintoreak ezagutuz, nobelagile errusiarrak eta sikologo alemaniarrak irakurriz, inperialismoaren aurka ekinez eta ateismoaren **alde** agertuz. Anton Garikano

Badugu parlamentua, baditugu alderdi politikoak eta elkarteak, eta badakigu kontatzen esku altxatuak zeren **alde** dauden. Joseba Zulaika

Lisboako futbolaren zaleak talde bitan banatzen dira, alegia, ala Sportingen **alde**, ala Benficaren **alde**. Edorta Jimenez

-Lasai, lagunak, herioarekiko izua beti gure **alde** -. Jose Angel Irigaray

Garapen Iraunkorrean oinarritutako ikuspegi aberats eta askotarikoen **alde** apostu egiteko tenorea da, tokian tokikoa harturik abiapuntutzat, hori baita aipatutako arazo horiek - guztiak ez bada, gehienak - konpontzeko bide bakarra. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Egileak, nahi den ñabardurekin, unibertsitatearen autonomiaren **alde** ageri dira liburu honetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bere lana eta profesioa duintzearen **alde** borroka handia egin du. Ana Urkiza

Ohar anitz egin dizkidate, idatzitakoaren **alde** nahiz kontra, Jose Luis Lizundia, Juan Ignacio Perez eta Anjel Lertxundi adiskideek. Pello Salaburu

Hegan egingo din nirekin, ikusiko dun - atera da Natxo neskaren **alde**. Patxi Iturritegi

Jokoa ez omen da errenta, eta hala ere gehienek egiten zuten apustu, txanpon batzuk besterik ezean, bakoitzak berearen **alde**. Xabier Etxabe

Izan ere, pertsonen esparru psikologikoan, badira jende batzuk ereduaren **alde** hazten eta garatzen direnak, eta badira, aldi berean, ereduaren kontra hazten direnak. Joan Mari Irigoien

Herriaren **alde** hiltzea gauzarik ederrena zitzaion. Itxaro Borda

Baina patua nire **alde** zegoen, antza: euli batek egin ez zuen, bada, segidan, plater gainera, pelikano ñimiño baten antzera! Joan Mari Irigoien

Harremanetan zebilen Tzeruiaren seme Joabekin eta Abiatar apaizarekin; bere **alde** zituen hauek. Elizen arteko biblia

Honen andrea, Marie Coulomb, emazteen eskubideen **alde** azkarki borrokatzen da bere bizi guzian, 1909an "Causeries sur le Pays Basque" liburua agertzen du. Michel Oronoz

Gero, noski, beti esan ahal izango dugu azala baino ez dela izenarena, beste hirurek askozaz gehiago egiten dutela euskararen **alde** Osasunak baino, eta holako. Iñigo Aranbarri

Eta horrexegatik egin zuten Ian Manhattan Proiektuaren **alde**. Fernando Morillo

Indarka ezin zutela ikusirik, erasotzaileak saiatu ziren gazteluko jauna diru trukean haien **alde** jartzen. Martin Anso

Litekeena da (moralki ere gomendagarria) Otoitza irakurtzea herritartasunaren ideia unibertsalistaren baieztapen gisa, horrek ondorioak baitakartza gizatasunaren duintasunaren **alde**. Esteban Antxustegi

Bigarren Mundu Gerratearen erdian, 1943an, Italia gobernu faxistaren menpe zegoela, noren **alde** jarri erabaki behar izan zuen. Koldo Biguri

• **4** *interj* alde egitea agintzeko erabiltzen den hitza. ik**aire 2**.

-Alde orduan hemendik! Joan Mari Irigoien

Ximeik honela zioen, erregea madarikatuz: - **Alde**, **alde** hemendik, odolzale eta maltzur-gaizto hori! Elizen arteko biblia

-Alde hemendik! Gizon sinple eta eskolagabe bat besterik ez haiz. Askoren artean

- Den-denak **alde** nire logelatik! - oihu egin zuen Jimmyk, negar-malkoez itsuturik, besoez kanporantz bultza egiten zien bitartean. Lopez de Arana

Alde hemendik! -esan zioten oihuka pala-formako, haizemaile-itxurako eta mutur bakarreko bizarrek-. Jose Morales

Alde hemendik, katu nazkagarri hori... Iñaki Mendiguren

Kanpora hemendik, bizkor, kontu eramailea dago eta, **alde** hemendik! Josu Zabaleta

-Alde hemendik, bada, **alde**! -esan zuen Lisa ederrak-. Karlos Zabala

5 (adizlagun gisa)

Oraingoan ere, zortea **alde** lerratu zitzaion Cesarri. Harkaitz Cano

-Suertea **alde** duen gizona zaitugu. Elena Touyarou

Hor ez zuten beraiek inolako parterik izan; patua **alde** tokatu zitzaien, besterik ez. Harkaitz Cano

Herriko jendea **alde** zuen. Iñigo Aranbarri

6 (izenondoekin)

Egiatan ez dakizu gauzak **alde** onetik hartzen! Karlos Zabala

Erreka bazterreko **alde** sarrienera atera da. Pello Lizarralde

Eta bien artean bada alderik, baina ez **alde** handiegirik. Xabier Olarra

Bidaia baterako gonbidapena da ikasle matxinatuek Valéry-ri hartu zioten esaldi hori: errealitatearen **alde** arrotza argitzen saiatuz gaindituko dugu errealitatearen **alde** arrunta. Anjel Lertxundi

Oraindik gizonen eta emakumeen artean **alde** txiki hori dago, arrazoi kulturalak direla medio, baina laster egongo gara parean. Luis Elberdin

Alde ederra! Gotzon Garate

Askotariko animalia-itxurak era daitezke, hainbat mailatako **alde** nabarmenak sorraraziz beren artean, besterik gabe eragiketa batzuk eginik gene erregulatzaileen sare zabalean, halako edo halako geneak bere burua adieraziko duen unea zehazten baitute geneok. Juan Garzia

Atzo liburuan, gizarte moderno honetako bizimoduaren **alde** hitsak uzten ditu agerian. Eskarne Mujika

Noiz, non eta nola aurkituko duzun ibilbidea; horra hor engaiamenduaren **alde** misteriotsua. Filipe Bidart

Hasieran, jakina, Albertok ez zion **alde** txarrik ikusten horri; aitak esan zion bezala, "Leku erosoa duk, motel: itxarotea, ez duk besterik egin behar. Iban Zaldua

Hogeita zortzi mende badira jada, arrats edo goiz gorri-gorrixkak zer atarramentu zekarkeen hurrengo goizerako edo arratserako, txuxen apuntatu zutela Mesopotamia **alde** oparo hartan lurrezko adreilu ttiki batean. Pello Zabala

Horixe da azkeneko aldiz hemen egon nintzenetik ateratzen ari naizen **alde** nabarmenena. Anjel Lertxundi

Ezezkoa egin genuen guztiok buruz nahiz mihiz, zortzi urteko umemoko batek ez dakiela hizkuntz sistemaren **alde** onak eta **alde** txarrak neurtzen, eta hura ez zela taxuzko arrazoi bat. Karlos Linazasoro

Gainera, sentiberatasun hark beste **alde** askoz ere ilunago bat zuen. Alberto Ladron Arana

7 *alde-alde*

Berrogeita hamarren bat urte izango zituen gure zaldunak **alde-alde**; gorpuzkera azkarra, iharra, aurpegi zimurra, goiztiarra eta ehizazalea. Patxi Ezkiaga

8 *alde-aldean*

Gure artean, ohitura da edozein ahaide zaharri deitzea horrela, are urrun-urrunari: eta, buruen buru, erkidegoko pertsona zahar guztiak baitira, **alde-aldean**, gure ahaide, hortik segitzen da gure osaba-izeben kopurua handia dela noski. Juan Garzia

Nik beste ikaskizun lurtarrago eta konkretuago bat nerabilen gogoan, eta uste dut kimikari militante orok baiezta dezakeela: mesfidatu beharra dagoela "ia-berdin"az (sodioa potasioaren ia berdina da: baina sodioarekin ez zen deus gertatuko), "**alde-aldean** gauza bera"z, "gutxi gora-behera"z eta "edo eta"z, ordezko guztiez eta petatxu guztiez. Juan Garzia

Milanen bizikletaz ibiltzea ez zen artean inolako ausarkeria, eta barra gainean inor garraiatzea, bonba eta iheste larrizko garai hartan, **alde-aldean** normala zen: zenbait aldiz, gauez bereziki, ezezagunek zerbitzu hori eskatzea suertatzen zen, eta hiriaren mutur batetik besterainoko garraialdi bategatik lauzpabost lirako ordain-saria ematea. Juan Garzia

Nonahi, balkoian zein barnean, traste-meta ikaragarri bat zegoen barreiaturik, hain antzinako eta maiztuak guztiak, non **alde-aldean** ezagutezinak baitziren: azterketa arretatsuago batez baino ezin zen bereizi tresneria profesionala domestikotik. Juan Garzia

Ez alferrik zen hori modu **alde-aldean** bakarra nire mutante kuttunetariko batzuen ezaugarriak azaltzeko. Juan Garzia

Eta **alde-aldean** mundu guztia da mundu guztiaren ahaidea. Juan Garzia

Aldi jakin bateko zientzia-idazkiei so egitean, harri eta zur eginik geratzen gara ikusirik mundu guztiak hartzen dituela objektu berak hizpide eta **alde-aldean** gauza bera esaten duela, are beren artean erabat desados daudenek. Juan Garzia

Baina, harritzekoa, ez zuen ematen konturatzen zenik itsua zela, eta **alde-aldera** ibiltzen zen asmatzen ea ni erakusten ari nintzaiona zer zen: bola urdin bat, luma gorri bat (izan, orrazi berde bat, patrikako erloju bat ziren nik erakutsitako gauzak). Xabier Olarra

(Atzerantz begiratuz, geure artean egiten genuen ea **alde-aldean** operazioaren egunetik beretik erakutsitako ikusmeneko gorabehera bitxi haiek ez ote zizkioten, hein batez behintzat, odoleko oxigenoaren gorabeherek eragiten, eta ez ote zion horrek eragiten erretina- eta garun-anoxia. Xabier Olarra

Alde-aldean, begiradak har dezakeen lur guztia. Juan Garzia

Bart gaueantxe, hamaikak **alde-aldean** zirela. Juan Garzia

Aurreko batean hala zekarren, **alde aldera**, espainolez: "Pentsatzen duguna esateak, hizpide biziagoa ematen du, dakiguna errepikatzeak baino". Patziku Perurena

Seguraski aro zoriontsuaren akabaila **alde-aldean** sumatzen nuelako hartu nuen hain gaizki Kristinaren haurdunaldia. Aingeru Epaltza

Hor dago **alde-aldean** Arantzazuko batua osorik, puntu eta komatxo, baita Arantzazuz gerozkoa ere, aditz eta guzti. Koldo Zuazo

Baina urduri zeuden zegoeneko; **alde aldera** bultzaka ari ziren, ukabilak jasorik. Josu Zabaleta

9 *alde aldeko*

Hurritzari begira liluratua, etxera joanda, kosta ahala kosta, **alde aldeko** poema batekin gorazarre egin baietz erreguka! Patziku Perurena

Berriz jaiotzea **alde aldeko** abantaila izango litzateke berarentzat. Antton Olano

10 *alde aldera*

Floristan Imizkoz jaunak dioenez terminologia modernoan identifika genezake, **alde aldera**, estilo periodikoa "menpekotze"arekin eta elkarbigiztatua lotze edo "koordinatze"arekin. Patziku Perurena

11 *alde anitzeko*

Hori da esaten duguna, nahiz baieztapen hori alderdi aniztuna den - **alde anitzekoa** esan nahi dut hitz honekin-, eta abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren arteko harremanak aski nahasiak diren. Pello Salaburu

Bakea eraikitzeak prozesu oso bat, globala eta **alde anitzekoa**, martxan jartzea eskatzen du» eta prozesu horrek ahalbidetuko du "euskal herritar guztien eskubide ororen errespetuan oinarritutako eszenatokia», eta ez alderantziz. Berria - Euskal Herria

Bestalde, normalizazio politikoa lortzeko, alderdien arteko **alde anitzeko** elkarrizketa beharrezkoa dela adierazi zuen EAJko lehendakariak. Berria - Euskal Herria

Alde anitzeko zorretik jaso beharko litzatekeenaren %10 da Erresuma Batuari dagokiona. Berria - Ekonomia

Azken berrogeita hamar urteok politika globalaren instituzionalizazio izugarri zabal bat ikusi dute, **alde anitzeko** akordio pila bat, instituzioak, gobernuz gaindiko goi bilerak... Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

12 *alde bakarreko* alde bakar bat kontutan hartzen duena, alde bakar bati dagokiona.

Errealitatea, ordea, nekez izan ohi da **alde bakarreko**, eta egia, zerbait izatekotan, askoren egiatxoen bilduma baino ez daiteke izan. Joxerra Garzia

Asteroko kafe eta garagardo haren faltan, gutxitxo zen **alde bakarreko** gutuna, eta komunikazioa areagotu nahi zenuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Inork **alde bakarreko** erabakirik hartuko ez duela adostu dugu. Berria - Ekonomia

"Alde bakarreko " mobilizazioak salatu ditu CCOOk; ELAk eta LABek "patronalaren konplizetzat" jo dute. Berria - Ekonomia

Ez gaude **alde bakarreko** mugimendu taktikoetarako. Berria - Ekonomia

Ez gaude **alde bakarreko** mugimendu taktikoetarako. Berria - Ekonomia

Nago enigmaren bi kosken batura dela gertakaria oroitzearen erantzule, ez dago-eta **alde bakarreko** txanponik. Anjel Lertxundi

Planteamendu horrek, zeina askogatik baita garrantzitsuena, Estatu Batuek eta Europar Batasunak abian jarritako **alde bakarreko** zigorrak ezabatuko ditu. Koro Navarro

Ekainaren 16-17ko goi bilera arte **alde bakarreko** neurririk ez hartzeko ari ziren eskatzen Europako instituzioak. Berria - Harian

Herrialde inportatzailearen jurisdikziotik kanpo gertatutako ingurumeneko arazoei erantzuteko **alde bakarreko** neurriak hartzea ekidin beharko litzateke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

1989ko urtarrilaren 8an ETAk **alde bakarreko** bi asteko su-etena eman zuen. Berria - Harian

Are gehiago erantzun okerrak baldin badira: **alde bakarrekoak**, topikoak, denentzat berdinak. Berria - Mundua

Eta eredu horiek **alde bakarrekoak** dira, eta, beraz, okerrak. Berria - Mundua

Biktimak gatazkaren bi aldeetan daude, eta ikuspegi orokor horretatik aztertu beharko da eremu horretan egin beharrekoa, inolaz ere ez ikuspegi partzial edota **alde bakarreko** batetik. Berria - Harian

13 *alde bat*

Aitak fitxategi bat hustu du, Margotek eta biok erabil dezagun, eta **alde bat** oraindik bete gabe duten fitxaz bete du. Josu Zabaleta

Alde bat euria ari baitzuen. Janbattitt Dirassar

Ehun bat urrats egiten dituzte tetelekeria kondan, **alde bat** haserretzea baino hobe delakoan... Eneko Bidegain

Orduz geroztik **alde bat** gogoan nian eta ahanzteko edan diat. Elena Touyarou

Eguna bururatua, ateak hetsiak **alde bat** biharamun goiza arte, gaua haste... Filipe Bidart

14 *alde bat utzi*

Ahotsaren soinua **alde bat utzita** saiatu nintzen jaki haren izaera zehazten. Joxan Elosegi

Indietako ontziak txikiak ziren, eta greziar eta erromatarrenak, handinahikeriak eginarazi zizkien ontzitzarrak **alde bat utziz** gero, ez ziren gureak bezain handiak. Iñaki Iñurrieta

Claudio Vicentinik zioenez, Joseph Israel de Tudela, musika **alde bat utzirik**, erlijioan bat egin zueneko familiaren ekonomia zaintzearren, Izmirnara joatekotan omen zen, ikuskatzaile gisa. Felipe Juaristi

Hemen, horrelakoak **alde bat utzita**, kontakizunetara mugatu gara. Jose Antonio Mujika

Alde bat utzi nuen dirua erdiesteko asmoa, opari eskaini nituen haiek guztiak. Joxan Elosegi

Aspaldi gabe hasia zen katea gai afrikarrez hornitzen, bazekien bezeria dotorearen aurrean diskrezioz jokatzen eta isilik egoten, eta **alde bat utziak** zituen jantzi indigena itsusi haiek. Joxan Elosegi

Gabin **alde bat utzita**, Gudari atera da okerren: pistolarenak zigor latza ekarriko omen dio, auskalo noiz arte soldadutza luzatu beharra, eta gainera sarjentu izateari utzita. Iñaki Iñurrieta

Hirurogoi urtetan berriz musikari lotu zen, ondarrik Kepa Junkera-rekin ere arizanik, 86 urtetan trikitia **alde bat utzi** arte, hiru hilabete zendu aintzin. Herria

Baina hasmentatik daukaten lanari **alde bat utzi** gabe, mekanikoki eta entzun dutena zinez entzun izan ez balute bezala, edota inor agertzea normalena bailitzan. Jose Angel Irigaray

Alde bat utzi sorkari erorkorrak eta geure geurekoikeriak, Jaunari urrats irmoz jarraitzeko. Joan Mari Lekuona

Hori ikasia zeukaat ongi, eta **alde bat utzia**. Patziku Perurena

Soilik dakit ezin nuela **alde bat utzi** azken labirintotik ilkitzean berriz Hilezkorren Hiri higuinak ingura nintzakeelako beldurra. Juan Garzia

15 *alde bateko*

Harik eta **alde bateko** hormatik behera botila bat irristatu eta lokatzetara erori zen arte. Josu Zabaleta

Alde bateko leiho tapak baino ez zeuden kenduak. Karlos Zabala

Botila ura **alde bateko** mahaian utzi zuen, bi besaulkien artean, eta han utzi zituen bi basoak ere. Jon Muñoz

Dena den, kontua ez da Course-k azaltzen duen bezain **alde batekoa**, zeren hizketaren eta hizkuntzaren artean, eta are sinkroniaren eta diakronikoarenean, transizioak eta bitarteko egoerak baitaude. Isabel Arrigain

16 *alde batera*

Alde batera hautsi dezake igorleak. Andoni Egaña

Alde batera hobe, saiatu zen aita niri eta bidenabar bere buruari bihotz ematen. Xabier Montoia

Normala zen **alde batera**, pasaitar gazte baten debuta ez baitzen egunero sortzen zen berria. Harkaitz Cano

Utzi txantxak **alde batera**. Iñaki Zabaleta

Gure mitomaniak eta kontu handiak **alde batera**, badirudi, zelten gisako azken europarrak garela euskaldunok. Patziku Perurena

Alde batera, hori da gutxienekoa. Joxerra Garzia

Beste aulki batzuk, han-hemenka: eskuinean eta ezkerrean, antzezleentzat; eta piano bat atzealdean, **alde batera**, ia ezkutuan. Josu Zabaleta

Gero, **alde batera** ulertzekoa ere bada nire inguruko andre hezur-haragizkoak ziztrinak eta ia ezdeusak iruditzea, neure amets-irudi haien aldean. Xabier Mendiguren Elizegi

Poztu egin nintzen **alde batera**, eta, bestera, pena ere eman zidan, oraindik nirekin maitemindurik imajinatzen bainuen. Joxean Agirre

17 *alde batera ala bestera*

Alegia, atsekabeturik ala pozik nagoen, bertute bataren ala bestearen bila nabilen, neure burua **alde batera ala bestera** prestatu nahi dudan, kontenplatzen ari naizen gauzaz tristatu ala gozatu nahi dudan, azkenik gauza berezi batzuetan irrikarik bizienaz opa dudana eskatuz. Patxi Altuna

Zeldan baino urrats gehiago egiten ahal ditut **alde batera ala bestera**... Aupa! Goazen aitzina! Bat bi hiru lau... bost sei zazpi... Zazpi zazpi zazpi... hirukiaren hiru aldeetan. Filipe Bidart

18 *alde batera edo bestera*

Alde batera edo bestera, lanera edo erretegira joaitekoak gara, gauaz garra darion ifernuko kezilo hari sugaia emaitekoak su hura kanpalekuaren bizkar gorenean da, dei plazaren gaineko aldean, zorigaitzeko argia, inguruko hamabost bat herrik ikus dezaketena. Marzel Etxehandi

Alde batera edo bestera okertzen diren pentsamendu-sailek jasaten duten gaitza hauxe da, eta Niziasek arrazoi du: errealitatearen zati minbera bat baizik ez dute kontuan hartzen. Itxaro Borda

Hori menditarrarentzat komenentzia izugarria da, zeren **alde batera edo bestera** jaisteko eta bere umorearen arabera jokatzeko aukera ematen baitio, okerrik egin gabe". Xabier Olarra

Hauteskundeetan beraien botoek eraisten dute balantza **alde batera edo bestera**. Gotzon Garate

Lehentxeago edo geroxeago **alde batera edo bestera** egitera behartuta zegoen, zirt edo zart egitera, ez zuen ihesbiderik. Migel Angel Mintegi

19 *alde batera eta bestera*

Gero, goizaren amaiera aldera, Lakuan agertuko da, eta neskak burua mugituko du **alde batera eta bestera**, erotuta dagoela adieraziz bezala baina ez zuela gutxiago ere espero aitortuz begiradarekin. Pako Aristi

Alde batera eta bestera ekin zion berriro, hau eraitsi, hura hil, ezkutuak zulatu, buruko babesgarriak erauzi. Juan Kruz Igerabide

Cumhailek urrutitik ikusi zuen Fionnek nola mugitzen zuen ezkutua **alde batera eta bestera**, Golen aginduei jarraituz. Joanes Urkixo

Arrabola behatz muturrekin heldu, eta **alde batera eta bestera** eragin zion, hots metaliko batek zabaltzeko moduan zegoela ohartarazi arte. Migel Angel Mintegi

Alde batera begiratu nuen eta bestera gero; **alde batera eta bestera**. Unai Elorriaga

Lau hankan **alde batera eta bestera** nenbilela, iruditu zitzaidan Schumacherrek arrazoia ote zuen, this stuff the man is made of eta hori guztia. Fernando Rey

Begiratu arretaz **alde batera eta bestera**. Xabier Mendiguren Elizegi

Alde batera eta bestera begiratu du Stefak, baina ez du mahai ondoan duen pilotik bat ere hartzeko imintziorik egin: Ania bera hurbildu da, azkenik, eta bat eskuratu du, piloaren tontorrean zegoena. Iban Zaldua

Lepoa inguratuz daraman kufia burua estaltzeko erabili du eta, **alde batera eta bestera** begiratu ondoren, botikatik korrika bizian atera da. Eider Rodriguez

Alde batera eta bestera begiratu zuen eta, inor ez zegoela ikusirik, egiptiarra hil eta hondarpean ezkutatu zuen. Jose Antonio Mujika

-Ez - aurpegia **alde batera eta bestera** mugitu zuen eta masailak belarrondoetan kulunkatu zitzaizkion -. Jon Muñoz

Alde batera eta bestera presaka zihoazen taldeen artean igaro ziren. Iñaki Mendiguren

Erantzi zuen, bada, mutil gazteak bere burukoa, eta buruari **alde batera eta bestera** eragin zionean, orduan hasi ziren ile-adatsak beherantz zabaltzen; eguzkiaren adatsak berak inbidia liezaieke. Patxi Ezkiaga

Behin eta berriro begiratzen diote, eta ispilua **alde batera eta bestera** mugitzen dute, zoko eta tolesdura guztiak ikusteko, den-dena begiratzeko. Luis Elberdin

20 *alde batera laga*

Dimisioaren berri izan zuenean, gobernuak arren eta arren eskatu zion berriro kontsidera zezala hartutako erabakia, eta, dimisioa **alde batera lagata**, onartuko zutela berriz ere lehengo baldintza berdinekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

21 *alde batera utzi*

Orain erretolikak **alde batera utzi** ditu. Jokin Muñoz

Ez litzateke ezinezkoa izango gauzak nola gertatu ziren zehatz-mehatz adieraztea, kronologia deitzen den hori eskrupulosoki errespetatuz, saihesbideak ekidinez, oroimenak eskaintzen dizkizun hutsuneak eta babesak **alde batera utziz**. Karlos Linazasoro

Eta irakurketak berak, erdizka bederen, **alde batera uztea** erabaki nuen. Txillardegi

Literaturak berez duen erregistroa **alde batera utzirik**, bateko eta besteko orri bakoitzarekin ikasten genituen berbak, egiturak, nahi dena, oso zen diferentea. Iñigo Aranbarri

Eztabaida azkar **utzi zuen alde batera**, libre gelditutako eserleku batera harrapaka joateko. Xabier Olarra

- Bai, bai, baina ezkontzea, umeak ekartzea eta kontu horiek guztiak **alde batera utzita**, zu oraindik ere... Juan Luis Zabala

Horrelakoetan ohikoak diren kontuak **alde batera utzita**, mahaian nire alboan egokitu zen ikaskide ohi baten ateraldiak harritu ninduen. Joxerra Garzia

Bestaldetik, kultu aniztasuna **alde batera utzita** ere, lege zibilak saihets dezake indarra eta bortxa erabiltzea, senar-emazte pozgabeak loturik edo ezkon barruko ezkongetza nahitaezkoan iraunarazteko. Andres Urrutia

Eta amodio-edabea edateagatik zoratu eta azkenean bere buruaz beste egin ote zuelakoa hobe **alde batera utzi**, hori kristau polemika berantiarretan sortua baita. Xabier Amuriza

22 *alde batetik*

Alde batetik aterpean daude. Gotzon Garate

Agerreko historia idatzi baitu Calimer fraileak ez dakit zenbat aldiz azpimarratzen duen, **alde batetik** Arbelbidek zinez erosi zuela Agerria, ez zitzaiola oparitua izan. Xipri Arbelbide

Gisa batez formakuntza ofizio bera segitzen zuen bere botigan, **alde batetik** errientsarena, baina bazuen ere zerbait apezarena bere kofesategian. Michel Oronoz

Zeren eta, **alde batetik** ez baitugu afektu batengatik deusik egiten, ona dela segur ez dakigunik, eta bestaldetik negar faltsuek erraz engainatzen baikaituzte. Piarres Xarriton

Neretzat gertakari haundia izan da, **alde batetik** irratiaren sortzea - irratien sortzeak uste dut esperantza haundi bat eman behar daukula -; telebistak ere bai, nolaz ez? Menane Oxandabaratz

23 *alde batetik bestera*

Bizitzak ibiliak gintuen **alde batetik bestera**, batzuetan atseginean, gehienetan zorigaitzean, eta ondo kolpatutako txalupak ginen, hondoari kateatuta bai, baina nork bere koskak gainean zituela. Hasier Etxeberria

Ur-laster isilak daude itsasoaren **alde batetik bestera** etengabeko joanean, eta lurrunketaz galdua dirudien gainazaleko ura ez dago benetan galdua, baizik eta urrutiko leku eta sasoietan beheratuko da, bere zikinkeria guztiak destilatuta, euri bizi-emaileren forman. Iñaki Mendiguren

Hizkuntzalariak hizkuntzaren bilakaera hartzen duenean kontuan, ikuspegi aldaketak atzematen ahaleginean Juran **alde batetik bestera** dabilen behatzailea dirudi. Isabel Arrigain

Ikusten denez, Itsaso Gorriko bokaletik Siagreraino joan ordez, Arabia zoriontsuko kostaldean iparrekialdetik gora eginez, zuzenean mendebaldetik ekialdera joaten ziren, **alde batetik bestera**. Iñaki Iñurrieta

Segituan antzeman zenuen erritmoa, segituan bereganatu zenuen logelaren zera berezia, eta orduan sandaliak erantzi eta **alde batetik bestera** hasi zinen guztia ukitzen, nire intimitatea era probokatzailean bortxatzen. Lander Garro

Erantzi egin ditu, eta gelaren **alde batetik bestera** ibiltzen hasi da, burua apal, bere barrenean bildua. Pello Lizarralde

Baina haur txiki guztiak pozak zoratzen zeuden ideia horrekin, eskolan **alde batetik bestera** ibiltzen ziren elkarri belarrira ahopeka zera esaten: nik hire amari sartuko zioat. Pello Lizarralde

Gure herria den ibaialde hau bizigarri izango bada, zubiak eraiki beharko ditugu, bai, baina ibaiaren **alde batetik besteraino** iristen diren zubiak, eta ez, ETArenak bezala, alde batean hasi eta alde berera iristen direnak, edota ibaiaren erdiraino baizik iristen ez direnak. Joxerra Garzia

Zahar batzuk "haizeak jota" egoten ziren, atakeren bat izan zutelako, eta beldurra ematen ziguten; hantxe egoten ziren kalean, eguzkitan eserita, besoak eta hankak adar ihartuen antzera zintzilik, ahoa okertua, **alde batetik bestera** zebilen jendeari begira. Juan Kruz Igerabide

Ontzitxo bat zuten jendea **alde batetik bestera** eramateko. Gotzon Garate

Erriaren **alde batetik bestera** suaren eresia bestereik etzenun entzungo. Lutxo Egia

Makadamez eginikoa zen, ez estrata edo bidetxoa, baina zuloak zituen ugari, eta, taxiak haietariko bat harrapatzen zuen bakoitzean, **alde batetik bestera** joaten nintzen bilin-boloka, gora eta behera ia saltoka. Xabier Montoia

-Ez, inoiz ez - purua ezpainen **alde batetik bestera** eraman zuen. Jon Muñoz

Euskal Herriaren **alde batetik bestera** dolorezko auhenak hedatu ziren. Itxaro Borda

24 *alde berdin*

Eta hirugarren motan, zabalerarekin **alde berdineko** lauki bat egiten da, eta gero karratu horren diagonala zehazten da: ondoren diagonal horren neurria ematen zaio atrioaren luzerari. Santiago Iruretagoiena

Jatordua heldu zenean bada, morroientzat ohi diren mahai luze horietako batera jarri ziren denak eserita; mahai biribilik edo lau **alde berdinekorik** ez baitzen izan ere benta-etxe hartan. Patxi Ezkiaga

Lotura sendo bat ezarri zuen horrela luzeren eta angeluen artean: bi **alde berdin**, bi angelu berdin! Jon Muñoz

25 *alde biko*

Zenbateko hori **alde biko** aurrerakinek (Estatu Batuek, Japoniak eta abarrek) eta Garapeneko Asiar Bankuak finantzatu zuten. Koro Navarro

Alde biko txanpona da ospea. Koldo Zuazo

- Neure zain datza labanaren **alde biko** zorrotza. Itxaro Borda

Ceuta eta Melillaren etorkizunaz **alde biko** elkarrizketetan "taburik gabe» tratatu beharreko gaia dela esan zuen. Berria - Mundua

Aurrerantzean ere **alde biko** arrantzako akordioak sinatzeko prest da Jaurlaritza. Berria - Ekonomia

Hala, hauteskundeotan "egon daitekeen **alde biko** bakarra PP-PSOE eta EAJren alternatibaren artean dago», esan zuenez. Berria - Euskal Herria

Generalitatea estatu bat dela zehazten du eta **alde biko** harremana izango du Espainiarekin. Berria - Harian

26 *alde bikotasun*

Bestalde, MMEren sorrerak (1995) kalte egin diezaioke **alde bikotasunak** merkataritza-gatazkak kudeatzeko modu gisa izan duen igoerari. Koro Navarro

g Estatuko legeen oinarrizko erreforma egitea, estatutuek jasotzen dituzten eskuduntza esklusiboen arau guztiak osorik bermatze aldera, eta **alde bikotasunari** errespetua adieraztea. Berria - Euskal Herria

27 *alde egin* *(orobat **aldegin**)* arin edo ihesi joan, arin edo ihesi urrutiratu.

Anaiak **alde egin** zuenez geroztik, erabateko isiltasuna zegoen etxean, abandonatua balego bezala. Koro Navarro

Faraoiak galdetu zion: -Zergatik nahi duzu zeure herrira **alde egin**? Elizen arteko biblia

"Bukatu da", esan eta beste etxe, beste hiri batera **alde egiten** zuen. Bernardo Atxaga

Goio erizaina da ogibidez, Barakaldoko Cruces ospitalean lan egin zuen hiruzpalau urtez, Iparraldera **alde egin** orduko. Joseba Sarrionandia

Anarkista hura, bero ikaragarria egiten zuen arren larruzko zamarra beltzez jantzia, herritik **alde egin** aurretik fabrikak erre behar zirela esaka. Ramon Saizarbitoria

Ann Arbor-etik **alde egin** aurreko gauean, bildu zituen bere ohar guztiak, diagrama eta zerrenda guztiak, bere hamahiru zatitako ikergai porrot joaren ezin konta ahala zirriborroak, eta erre egin zuen orrialde bakoitza bidoi batean, etxe osteko lorategian. Oskar Arana

Bideko hautsa harrotuz **alde egin** zuten. Bernardo Atxaga

Hark **alde egin** ondoko egunean, Tom gonbidatu zuen Bosgarren Etorbideko Mike&Tony's Steak House jatetxean bazkaltzera. Oskar Arana

Eta gordelekuaren zaintzan zeudenek **alde egin** beharra bazuten? Edo eskailera puskatzen bazen? Bernardo Atxaga

Ama joana zen, **alde egina** . Lopez de Arana

-Bihar, Rouendik **alde egina** izango naiz. Josu Zabaleta

Haren emaztea eta alabak ordurako **alde eginak** ziren etxetik. Lopez de Arana

-Lasai, mutilak, zeren ehizak ez baitu saretik **alde eginen** . Joan Mari Irigoien

Handik ordu betera harenetik **alde egin** eta etxera itzuli nintzen. Josu Zabaleta

Senarrak **alde egin** ziola kontatu ziotenean, beranduegi zuen Taibelek gizona harrapatzeko. Koro Navarro

28 *alde egite*

Inork ere ezin du egin uretan habiarik ez oinarridun etxerik, **alde egite** eta itzuleren espazioa baita. Joseba Sarrionandia

-Beti nahi **alde egitea** . Josu Zabaleta

Neuri ere **alde egitea** pasatu zitzaidan burutik. Anjel Lertxundi

Jainkoaz hitz egiten hasi zitzaion, eta horrela tentazio guztiek **alde egiten** zioten. Askoren artean

Harryk bekokia lehortu zuen bere mahukaz, Draco jiratu zenean **alde egiteko** . Iñaki Mendiguren

Bost minutu barru hemen nahi zaituztet denok, **alde egiteko** prest. Iñaki Mendiguren

Alde egiteko pausoa eman dudanean egin dit Imanolek kasu: [...]. Joseba Sarrionandia

Muinoko airea gero eta freskoagoa zen eta **alde egitekotan** nintzen unean, talde baten kantu-hotsak heldu zitzaizkidan. Anjel Lertxundi

Etxetik **alde egiterakoan** , agenteak desenkusaka aritu zitzaizkion amari, elkarri txanda hartu ezinik: [...]. Anjel Lertxundi

Afifi andereak **alde egitearekin** batera, Hamida sartu zen gelara. Patxi Zubizarreta

29 *alde eragin*

Epaileek "independentziaz eta irizpide juridiko soilez» abiatutako auzian Otegiren **alde eragin** nahi izatea leporatu zion PPkoak, eta Lopezi botere banaketa oinarrizko araua dela ahaztu egin zaiola gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

30 *alde eragingarri*

Egoera honetan dagoen **alde eragingarri** bakarra. Berria - Harian

31 *alde eta fabore*

Otoitz egin Jainkoari ene **alde eta fabore,** zeren eta ez baitizut gezurrik erranen: eneak egin du... Joan Mari Irigoien

Ez du urrundanik ere uste ezen nik galdu ditudan dohakabeen alde eginez [...] aitzinetik dela beraren **alde eta fabore** mintzo. Jon Muñoz

32 *alde guztiz* *(corpusean ez dago; ETCn **41** agerraldi)*

Alde guztiz , ez ziruditen oso kopla remarkableak, kuadrilako gainerako gizonei berriz, grazia handia egiten zieten, esku-zartaka eta barre-zoroka hartu zituzten. ETC-literatura, saiakera

Alde guztiz ezinezkoa. ETC-literatura, saiakera

Baina errealitate honek **alde guztiz** kritikagarriak dituen arren gure herriaren etorkizuna hor barruan eraikiko da. ETC-prentsa

Baina Sterne erabat gai izan zen katedrala **alde guztiz** saihesteko. ETC-prentsa

(?) terminoak dakar elektromagnetismoarekiko **alde guztiz** erabakigarria, horrek eragiten baitu Yang-Mills eremuak bere buruarekiko duen mendekotasuna. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretantxe dute beren artean **alde guztiz** nabarmena lotura kobalenteen bidez eraturiko konposatuak eta lotura ionikoz eratuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta hainbat erabiltzen duzu bekatu egitea, hainbat segitzen duzu, non **alde guztiz** beldurra galtzen baituzu; ohituari bezala, haietan laketzen baitzaizu; eta handik aurrera, batere ez bazenu baino gehiago ez baituzu konturik egiten. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta geldituko dira **alde guztiz** dolutuak, etsituak, deskonsolatuak eta desesperatuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

33 *alde hemendik*

- **Alde hemendik** , Poliziak ez diezagun Yvesen hiltzea lepora. Itxaro Borda

Alde hemendik edo geldiarazten zaitut! Elena Touyarou

Kanpora hemendik, bizkor, kontu eramailea dago eta, **alde hemendik** ! Josu Zabaleta

Alde hemendik ! Juan Kruz Igerabide

Eta aspertzen bazara, **alde hemendik** . Hasier Etxeberria

Eta zuek, jaiki hortik! **Alde hemendik** ! Josu Zabaleta

-Alde hemendik segituan - esan zion Autodidaktari -, eta ez agertu berriz hemen sekula, bestela poliziak ateraraziko zaitu hurrengoan. Monika Etxebarria

Ama nire ondoan ehorzten duzunean, **alde hemendik** egun hartan bertan; ez igaro gau bat bakarra ere inguru hauetan. Jose Antonio Mujika

-Alde hemendik zuen etxeetara! Jon Maia

-Orduan **alde hemendik** ! Matías Múgica

Alde hemendik ! - egin zuen oihu Txilintxok. Julen Gabiria

-Alde hemendik , bada, alde! - esan zuen Lisa ederrak -. Karlos Zabala

- Alde, Beltxa, **alde hemendik** ! Koldo Izagirre

Zergatik ez nien esaten " **alde hemendik** , zertan zaudete zuek nire amaren eta osaba Juanen etxeko sukaldean eserita. Bernardo Atxaga

"Maite zaitut" ere izan zitekeen, baina, ikusiak ikusi, lepoa jokatuko nuke " **alde hemendik** !" edo "utikan!" esateko premia larria izan zela tximinoa hizketan hasteko arrazoia. Joxerra Garzia

Hartu plater hau eta **alde hemendik** ! Itziar Otegi

-Utikan, zaldun, **alde hemendik** ! Patxi Ezkiaga

" **Alde hemendik** ! - esan zioten oihuka pala-formako, haizemaile-itxurako eta mutur bakarreko bizarrek -. Jose Morales

-Alde hemendik ! - ekin zidan garrasika. Mirentxu Larrañaga

Orduan, erregina baten doinua harturik, eta boza goraturik, segitu nuen: " **Alde hemendik** , jauna, eta ez sekula gehiago nire aitzinean ager. Jon Muñoz

34 *–en **alde irten***

Batzuetan, haren **alde irteten** nintzen Endreren eta Tiborren aurrean. Ander Irizar

Horrelakoak dituk hiri triste honetako zorigaiztokeriak, entzun nion esaten nire **alde irtendako** gizonari. Anjel Lertxundi

35 *alde izan*

Gaur suertea **alde izan** duk, jokoan baino arreta handiagoa baineukan hire kontu horietan. Xabier Etxabe

"Kalean denak **alde izango** dira gainera," esan zuen Pikutak. Pablo Sastre

-Niri esker, bai, baina ez pentsa gauzak beti horren ongi ateratzen direnik, zorte pixka izan behar da askotan, eta oraingo honetan **alde izan** dut. Migel Angel Mintegi

Eta alde horretatik ere adurra **alde izan** nuen. Edorta Jimenez

Dena den, erran dizudan bezala, nazioarteko egoera **alde izan** genezake orain... behar bezala jokatzekotan, noski. Alberto Ladron Arana

Agoran, Mentor, Antifo eta Haliterses lagunen ondoan eseri zen Telemako, haiek beti **alde izan** baitzituen; gero, Pireo agertu zen atzerritarrarekin, eta alboan eseri zen; honela zioen. Juan Kruz Igerabide

Agian berehala gertatuko da dena, agian patua behingoz **alde izan** eta ez dut ikusi beharko mutikoa nola daramaten... ezin dut gehiago idatzi. Eduardo Matauko

Eskuarki gertatzen zen zortea **alde izaten** zuela bere zeregin guztietan; azken hiru egun horietan, ordea, gauzak zeharo okertu zitzaizkion, zoria etsai bihurtzeraino. Jose Morales

Zu, gelditu don Justinianorekin, eta izan zaitez haren esaneko, nire Jainkoa **alde izan** dezazun. Joan Mari Irigoien

36 *alde zahar* ik **alderdi zahar**.

Ura indarrean zihoan Bilboko **Alde Zaharreko** kaleetatik dendak eta tabernak hondatuz, eta bistakoa zen kalte ekonomikoak izugarriak izango zirela. Bernardo Atxaga

Ez nuen ez begirik ez arretarik **alde zaharreko** kale estuentzat, udaletxea edo katedrala bezalako eraikuntza ederrentzat, lanetik etxerakoan garagardoa edatera edo erosketa batzuk egitera gelditzen zen jendearentzat. Anjel Lertxundi

Alde zaharrean utzi ziguten etxea, Zeru Handiaren ondoan. Arantxa Iturbe

Alde Zaharrean ibili nintzen, gora eta behera. Pako Aristi

Nik, aldiz, zehar-begiz eta tarteka erreparatu nion, hiriko **alde zaharrak** dituen pasagune estuetan aurretik jartzen zitzaidanean bereziki, bere ibilera deskonpasatu samar horiek miretsiz, takoien gainean baldrexka. Joxean Agirre

Zarauzko **alde zaharrera** joan zen bizitzera familia osoa. Xabier Etxabe

Senitarteko haiek hiriko **alde zaharreko** etxe zahar batean bizi ziren. Josu Zabaleta

Festa izan da **alde zaharrean** txokolate bero-bero bat hartzea. Patxi Zubizarreta

Izan ere, besterrira baino lehen Jarrai **Alde Zaharreko** tabernetako aurpegi ezagunak ziren gehienbat, lagun bat edo beste, baina Londresen, ordea, egunkariak, irratia eta, orain, miretsitako autobus gorriak. Lutxo Egia

Herria muino baten hegian dago; eta lorategi publikora eraman ninduten, **alde zaharraren** bukaerara. Josu Zabaleta

Bidaia amaitzeko egun bi baino falta ez zirela eta bertako **alde zaharretik** gindoazela - helenoek sortua eta erromatarrek, erraustu ostean, berriro eraikia, gidariaren berbetan -, azken saiakera egitea erabaki nuen. Xabier Montoia

Euria ari du **Alde Zaharrean**. Sonia Gonzalez

New Orleans hiri kosmopolita da, eta **alde zaharrean** arraza nahasketa bero eta oparoa eratu da. Xabier Paya

Guk kontrako bidea hartu genuen, hiriaren **alde zaharreko** kale estu batzuetatik barna. Anjel Lertxundi

Patxi Gorraizek ederki ezagutzen ditu Itoizko Koordinakundeak Iruñeko **Alde Zaharrean** duen bulegoko txoko guztiak. Edurne Elizondo

Alde zaharretako oreka guztia hankazgoratzen zuen. Hasier Etxeberria

37 *aldea atera*

Hiru bat metroko **aldea ateratzen** zion... Iñaki Mendiguren

Azkenean 4 untzeko **aldea atera** zenioten; non egon zen gakoa? Berria - Kirola

Hamabost segundoko **aldea atera** diot, minutu doia duen pieza batean! Anjel Lertxundi

Beste behin Frantziako Tourreko erlojupekoan Marinelli frantses indartsuari irabazi zion, eta hainbeste minutuko **aldea atera** zion, ze gero Marinelli hori ez zen sekula iritsi helmugara. Pello Lizarralde

Egia zen, ordea, eta harritzekoa, gainera, zortzi hilabete haietan Arkimedesen idazlanekin aurrez aurre topo ez egin izana; eta, horretan, noski, **aldea ateratzen** zion mafioso zahar hark. Jon Muñoz

Ezagutzen ditut bi pago, Arantzazuko Ama Birjina koroatu zutenekoan, komentutik beste alderako pendizeko harkaitzondoan landatu zirenak, eta batak besteari bost eguneko **aldea ateratzen** dio beti, urtero. Pello Zabala

38 ***aldenik alde*** *(ETCn **83** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **alderik alde** agertzen da)* alderik alde.

Uhartea **aldenik alde** gurutzatu zuten mendebaldetik ekialderaino. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ilunez ilun hegan etorri da mahai gaineko lanpararen argitasun epelera, bere hegall ddarddararen burrunbaz, zerrote zahar batek oholik zabalena ebakiko lukeen gisan, isiltasun ikaragarri honen axal mehe delikatua **aldenik alde** ebakiz. Patziku Perurena

Gure ikurriñan ere, gurutze gurutzatua, goitik behera eta **aldenik alde** zuri doanarekin batera, hor daukagu, lau kantoietatik zeharka datorren beste gurutze berdea: San Andresena da hori. Pello Zabala

Zaldun teutonikoen aurka poloniarrek egindako balentriak, Moskuko atarietaraino iristen zen Polonia zabalaren handitasuna, Itsaso Baltikotik Itsaso Beltzeraino Europa **aldenik alde** zeharkatzen zuen erresuma indartsuaren loria. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gona, tolesduna eta kanpai tankerakoa, **aldenik alde** kulunkatzen zitzaion. Lopez de Arana

Johni aurpegia **aldenik alde** gorritu zitzaion, bere ile gorri-horiaren erroetaraino. Lopez de Arana

Argi egiten digun eguzkiagatik, **aldenik alde** lantzaz pasako ote zaitudan naukazu. Patxi Ezkiaga

39 *alderen alde*

Batzuek Ama Doloreetakoa ikusten omen zuten, beste batzuek Sortzez Garbia ezpata eskuan zeukala edo bihotza **alderen alde** zulatzen ziola, edo baita San Migel Goiaingerua ere, edo Jesus Haurra, Santa Teresa, eta baita, espektroaren haruzko puntan, deabrua edo sorginak ere beste batzuek. Iñaki Segurola

Eta hala ikusi dut neure burua, urregorrizko kate-eraztunak agirian ditudala Mexiko Barruti Federala, Guatemala City edo Tegucigalpa **alderen alde** pasatuta bezalaxe. Iñigo Aranbarri

40 ***alderik alde*** alde batetik bestera.

50 metro luze **alderik alde**. Berria - Kultura

Gelan **alderik alde** ibiliz hitz egiten zuen orain. Joxean Agirre

Alderik alde zabaltzen zuen atea espantukerian. Juan Kruz Igerabide

Austriako basozainen txanoa zeraman kapitain bat, aurpegian **alderik alde** ebaki orbaindu bat zuen , ahoa gurutzatu eta kokosperaino zihoakiona. Fernando Rey

Artikulua irakurri nuenean fantastiko samarra iruditu zitzaidan, sinesgaitza; paretak **alderik alde** pasatzeko gai ziren gizonak zituen mintzagai. Xabier Etxabe

Tornua **alderik alde** pasatzeko zuloa non egin behar duten markatuko du borreroak gisu puska batez. Koldo Izagirre

Eivissa **alderik alde** bitan zatituko duen autobidea eraikitzen ari da PP. Berria - Mundua

Paretak **alderik alde** pasatzen dituen mutila deabruarekin tratuan, liburu bat dela medio. Xabier Etxabe

Begiak liburutik jaso eta guztioi behatu zigun aurrena, burua **alderik alde** jiratuz. Koldo Izagirre

Nabokoven tximeleta sentitzen naiz, entomologo batek orratzez **alderik alde** ziztatua. Iñaki Iñurrieta

Zintzoaldiak jo nau **alderik alde**, eta behin behar eta, politikaz jardun nahi dut gaur, baina zintzoki, gixonki: politikoek, gurasoek eta intelektualek jardun ohi duten eran. Iñaki Segurola

Lantzakadaz zulatu zioten **alderik alde** bular aldea eta bihotza, eta gero artadian utzi zuten zakur bat bezala hilik, putre eta saien bazka. Felipe Juaristi

Fionn hara inguratu zen, eta neskaren lepo gainetik aberearen egoera penagarria ikusi zuen: sabela **alderik alde** irekita zeukan, hanka bat falta zitzaion eta urradura asko zituen agerian. Joanes Urkixo

Keinuera geldoa ohi duen pertsona batengan ezustekoa den mugimendu azkar batez, Raimundo Silvak **alderik alde** ireki zuen leihoa. Jon Alonso

Beste kutxa **alderik alde** ireki batzuetatik, ordea, aldiro zihoazen ihesi beste liburu batzuk. Jon Muñoz

Saldu bere partea eta gure nazioa **alderik alde korritu** zuen, bera kezkatzen zuten galderen erantzuna noiz eta non aurkituko. Felipe Juaristi

Harekin, gure beldurra areagotzeko adina baizik argitzen ez duten argitasun zalantzatiek **alderik alde** igarotzen gaituzte bat-batean. Josu Zabaleta

Nire gorputzeko ile guztiak tentetzen sentitu nuen, eta **alderik alde** zeharkatzen ninduen hotzikara bat. Juan Martin Elexpuru

Woody Guthrie musikariaz oroitu zen: Ameriketako Estatu Batuak **alderik alde** zeharkatu zituen hark -trenetan polizoi tarteka, auto-stopean gehien bat- hamaika urtetan hitzik zuzendu ez zion aitaren hiletara joateko asmoarekin. Harkaitz Cano

Zuzenean errekan sartu eta **alderik-alde** zeharkatzeko gauza zen. Anton Garikano

Nire gorputzeko ile guztiak tentetzen sentitu nuen, eta **alderik alde** zeharkatzen ninduen hotzikara bat. Juan Martin Elexpuru

Erdiko zehar-egurrak **alderik alde** erditik zeharkatuko ditu oholak. Elizen arteko biblia

Lurraren kontra erori zen ahuspez, eta Alainek, gainean zangalatrau, sastakaiaz ebaki zion zintzurra, **alderik alde**. Juan Garzia

Zer esan nahi ote du **alderik alde armarriz** apainduriko karrika honek? Koldo Izagirre

Hara, kanabera printzatua bezala da Egipto: euskarritzat hartzen duenari eskua zulatzen dio **alderik alde**.

Bide ertzean gordeta zain egon, eta lantzaz zulatu nian alderik alde. Juan Kruz Igerabide

41 *alderik aldeko*

-Damu dugu, barka iezaguzu -eta gora eta behera mugitu zitzaion aurpegiaren **alderik aldeko** bibote zuria. Anjel Lertxundi

Alderik aldeko irribarre batekin, gazteak arrapostua eman zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Munduaren **alderik aldeko** marmarrak. Juan Garzia

42 *alderik aldeko balkoi* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Baigorrin eta Aldudeko Haranean bigarren solairuan aurrealdeko fatxada osotik doazen **alderik aldeko balkoiak** edo galeriak mirets ditzakegu. ETC-entziklopedia

43 *aldez besteko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Baina Donal Trumpek, eta betaurrekoak jartzen ditut hobeki ikusteko, hirurogeita hamarrak hurbil ditu, **aldez besteko** maskor erara orraztua, burezurraren gibeletik hasten da, ehun eta bi gradutan, ziurrenik soila den zonalde bat estaltzeko, eta kopeta-ile izurtuan bukatu. ETC-literatura, saiakera

Horrela esan zien behin aitaginarrebak; ez zen erraza izan jakiten, nolanahi ere, hark zer adierazi nahi zezakeen alegrentzia hitzarekin **aldez besteko** horren jarrera epela agertzen baitzuen. ETC-literatura, saiakera

44 *atzeko alde* atzealdea.

Konforme geratu denean **atzeko aldea** erabat betetzen duten bi kutxen artetik maletatxo bat hartu du eskaera koadernoak, katalogoak eta bisita txartelak barrenean daudela egiaztatzeko. Pello Lizarralde

Autobusera itzuli garenean, **atzeko aldera** joan naiz, denen aparte, lotarako asmoz. Anjel Lertxundi

Baldintza bi bete beharko ditu ibilgailu horrek: euren burua babesteko xafla gardena izatea batetik, eta **atzeko aldean** lau bidaiari hartzeko beste leku izatea, bestetik. Berria - Harian

Kaxa preziatu hura **atzeko aldean** sarturik, aurreko atea ireki zuen. Edorta Jimenez

Ordu batean puntuan Goio irten eta, bere liburuak besapean, bakarrik joan zen frontoiaren **atzeko alderantz** zelai erreglamentarioan zehar. Joseba Sarrionandia

Handik ikusten nuen Gorriz, eta ibarraren **atzeko aldean**, Itoitz eta Orbaitz. Edurne Elizondo

Asko zeukan gure gizonak koipe horretatik, pare bat kontenedore, fabrikaren **atzeko aldean**. Hasier Etxeberria

Atzeko aldetik, besapetik helduta, dizipluetako batek eusten dio. Imanol Zurutuza

Etxeak bazuen **atzeko aldean** adobezko hesi-horma bat, arbaztaz estalia, barruan ukuilua, gurdiarentzako teilapea, aihendegia, dolarea, bodega, olio-errota eta zenbait patio eta eskorta hartzen zituena. Josu Zabaleta

Egia da, anitz datu aurki baitaitezke hemen, gehienak testuan zehar eta batzuk **atzeko aldean** tauletan bilduak, irakurketa arintzeko asmoz eramanak hara. Pello Salaburu

45 *aurreko alde* ik **aurrealde**.

Horretarako, baina, etxe osoa zeharkatu beharko nuen, nengoen bulegoa etxearen **aurreko aldean** baitzen. Alberto Ladron Arana

Aurreko aldean eserarazi ninduten eta Dorothy atzeko aldean. Fernando Rey

Laugarrena, merkatu **aurreko aldea**, Salazar ibilbidea, ring-etik hogei metrora. Berria - Kultura

Itsasoko Gurutze Gorriaren kanoa gorri-beltz zaratatsua **aurreko aldetik** agertzean, azkartu egin da begiraleon artean itxarotearen dramatismoa. Txillardegi

Ni sartu nintzen oraingoan **aurreko aldean**. Jon Muñoz

Atzo izan zen medikuarenean eta espero baino larriagoa izan da erresonantziaren emaitza: ezker belaunaren **aurreko aldeko** lotailu gurutzatua eta barne meniskoa ditu apurtuta triada famatua. Berria - Kirola

Soineko merkez jantzitako eta kolore biziz makillatutako emakume lodi batzuek, **aurreko aldean** jarririk, jakien prezioez hizketan ziharduten. Iñaki Zabaleta

Buruaren **aurreko aldean** zegoen tumorea. Imanol Zurutuza

46 *azpiko alde* azpian dagoen aldea. ik **azpialde**.

Arkitrabearen zabalera, **azpiko aldetik** hartuta, sumoskapoko hipotrakelioaren araberakoa izango da. Santiago Iruretagoiena

Aroztegia aldiz, bidearen **azpiko aldean**, errekaren ondoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Basoan aurrera egindako bidea atzera egiteko ez ahal genuen etsi, halako batean, garrasi batzuk entzun genituen bidez **azpiko aldetik**. Inazio Mujika Iraola

Ez dakit aitak gaizki begiratu eta **azpiko aldean** ote zegoen eta Isabelen pisuagatik lehertu ote zen artefaktua, ez dakit, eta ez nuen sekula galdetu. Mikel Hernandez Abaitua

47 *begien bistatik alde egin*

Columbus Circle-tik igarotzean, **begien bistatik alde egin** zioten, jendetzaren artean. Lopez de Arana

Alferrik; ezen, hark nire **begien bistatik alde egin** orduko, sabaira igotzen bainintzen, hodei txuri baten abaila patxaratsuan. Karlos Linazasoro

Segizioak **begien bistatik alde egin** zidan, baina egingo nuke kanpoko horma zaharrerako bidea hartu zuela. Iban Zaldua

48 *behe alde* ik **behealde**.

49 *beste aldean* ik **bestalde 6**.

Gertatzen dena da informazio asko daukagula gaur egun, aukera gehiago daukagula jakiteko zer gertatzen den munduaren **beste aldean**. Berria - Euskal Herria

Kantoi baten **beste aldean**, jiratu eta ostiaka eta ostikoka azaldu zitzaizkien, aurre-aurrean, tipo haiek. Fernando Morillo

Komuna korridorearen **beste aldean** zegoen eta hara joan nintzen korrika, eta kukubilko jarri nintzen komun-ontziaren aurrean, atearen parean. Joseba Urteaga

"Ba omen da mendilerro bat ekialdean, eta haren alde batean jokabide batzuk inmoralak omen dira, **beste aldean**, berriz, estimazio handikoak. Xabier Olarra

50 *beste aldera* ik **bestalde 8**.

Ez nengoen beharturik, ghettoan, zaldi bat bezala ibiltzera, kale erditik; jendeak ez zidan gorrotoz so egiten eta ezagutzen nituenek ez zuten aurpegia **beste aldera** jiratzen eta ez ninduten zapuzten. Felipe Juaristi

Kontatu nizun plazan mutil guztiak elkarrekin bueltaka ibiltzen zirela, alde batera, eta neska guztiak, juxtu **beste aldera**. Arantxa Iturbe

Literatura hilda zegoela entzutera ohitzen hasiak gineneko honetan, Patri, erabat jo dugu **beste aldera** eta literaturak bakarrik isla dezakeela errealitatea hasi gara esaten. Hasier Etxeberria

Y grekoa bezalako erabaki garrantzitsuak hartzen ari direnean, PP, EAJ eta EAren adostasunez, ezin dugu beste **aldera** begiratu eta ez garela joango esan. Berria - Euskal Herria

51 *bistatik alde egin*

Dobby, hobe duzu **bistatik alde egitea** nire hezurrak hazi eta osatu baino lehen, edota urkatu egingo zaitut. Iñaki Mendiguren

Biei azken begirada sutua bota, kapa bildu bere inguruan eta **bistatik alde egin** zuen bizkor. Iñaki Mendiguren

Columbus Circle-tik igarotzean, begien **bistatik alde egin** zioten, jendetzaren artean. Lopez de Arana

Alferrik; ezen, hark nire begien **bistatik alde egin** orduko, sabaira igotzen bainintzen, hodei txuri baten abaila patxaratsuan. Karlos Linazasoro

Segizioak begien **bistatik alde egin** zidan, baina egingo nuke kanpoko horma zaharrerako bidea hartu zuela. Iban Zaldua

52 *branka alde* *(orobat **brankalde** g.er.)* brankaren aldea.

Eta ibili ere, **branka aldean**, karelaren goian zabal, erakunde horren izena daroan ohola ipinita ibiliko da ontzia. Edorta Jimenez

Ainhoa irakur zitekeen ontziaren **branka aldean**, hizki larri eta barrokoz. Felipe Juaristi

Han, **branka aldeko** gazteluan baziren emakumezko batzuk elkarrekin batera. Edorta Jimenez

Itzulerdi egin du Bittorrek **branka aldera** . Koldo Izagirre

Branka aldetik hurbiltzean izena irakurriko duzu albo batean: [...]. Joseba Sarrionandia

Aparailuak bizkor bildu, aldi berean **branka aldetik** beste aingura bat larga eta, behingoan, lehorrera bidali zuen txaneltxo bat, popako kriseilua isioturik zeramala Edorta Jimenez

53 *bukaera alde* *(orobat* ***bukaeralde*** *g.er.)*

Ellen besaulki malgu batean eserita zegoen, gela luze baten **bukaera aldean** . Lopez de Arana

Martxoaren **bukaera aldean** desagertuko da oraingo enpresa taldea. Berria - Ekonomia

Gure amuña, udaren **bukaera aldetik** puntuari lotzen zitzaion, zetorren neguari aurrea hartu nahiz. Xabier Mendiguren Elizegi

Irailaren **bukaera aldera** , mahats-biltzea hasi baino egun batzuk lehenago. Josu Zabaleta

Bi kasuetan, mendebaldar bihurtzeko mugimendua kristau-aroko hamazazpigarren mendearen **bukaera aldera** ezarri zen. Iñaki Mendiguren

Ipuinaren **bukaera aldera** , idazlea mozkortuta dago eta ezjakin erabatekoa ikusten dugu besteek mintzagai dituzten alorretan. Anjel Lertxundi

Harry jendartean aurrera joan zen konpartimentu bat hutsik aurkitu zuen arte, trenaren **bukaera aldera** . Iñaki Mendiguren

54 *gaineko alde*

Han ziren jendek lekuak hustu behar ukan dituzte eta **gaineko aldean** diren bi bizitegietan ere makur asko izan da. Herria

Zeldari behako bat eman eta ohartzen naiz leihatila ere ez dudala zelda barnetik zabaltzen eta hesten ahal, kable bat joaiten baita leihatilatik atearen beste aldera zelda guzia zeharkatuz hormaren **gaineko aldean** loturik. Filipe Bidart

Eta buruan aski barna sartu zuen, beti egiten ikusi zuen bezala: puntta bat luzatuz begien **gaineko aldean** . Elena Touyarou

Miniaturizazioteknika aurreratu zenean, kameraren barruan integratu ahal izan zen esposimetroa; objektiboaren **gaineko aldean** , gehienetan. Irene Aldasoro

Kotoizko alkandora zuri batez jantzirik agertu zitzaizun jangelara eta, ohi ez bezala, galtzetan sartu gabe zekarren alkandora apaina, lihozko galtza ilunen **gaineko aldetik** arnasturik. Hasier Etxeberria

Minutu bat behar izan dute harrobi baten **gaineko aldera** ailegatzeko. Pello Lizarralde

Hiruzpalau liburu ikusten ziren **gaineko aldean** . Fernando Morillo

55 *goiko alde*

Balantza jaitsi zenean, papera hartu, bildu, eta **goiko aldea** tolestu zion bizi, hatz mamiz. Karlos Zabala

Argi bat sumatu zuen Joanesek **goiko aldean** , argi txiki nabaria. Felipe Juaristi

Gure herriaren historiaz eta literaturaz axolatu izan direnek dagoeneko antzemango zioten bezala, hala zioen hilarriaren **goiko aldeak** . Xabier Mendiguren Elizegi

Garaipen hori oso garrantzitsua da nafarrentzat, sailkapenaren **goiko aldeari** eusteko, batetik, eta talde berria gauza handiak egiteko gai dela erakusteko, bestetik. Berria - Kirola

Urtebete giroa berotuz kanpainako afixak emakume baten hankak erakusten zituen **goiko aldean** , eta hiru gizon beheko aldean, hari begira eta keinuak egiten. Berria - Euskal Herria

Baina gorputzak muga batzuk izaten ditu barneko tenperatura horrentzat, bai beheko aldetik (gizakian 35°C edo) eta bai **goiko aldetik** (gizakian 42°C edo). J.M. Olaizola "Txiliku"

Nahasketa orekatu batez kartelean zehar sakabanaturik zeuden irudiak, eta erdian, **goiko aldean** , mikrofono baten itxurako idazlumak idaztera gonbidatzen zuen. Iñaki Zabaleta

Goiko aldean , erdian, neska gazte baten karneteko argazkia ageri da. Agurtzane Juanena

Gizenago zegoen eta burutik soildua ia-ia, baina buruaren **goiko aldean** bazituen, artean ere, ile-xerlo hori leun banatu batzuk. Fernando Rey

Belarrietan txistua sentitu zuen, lokietan presioa, eta gasaren hodiak oso modu beldurgarrian zebiltzan balantzan **goiko aldean** . Anton Garikano

Igande arratsaldean, ordea, eliza dagoen auzora joatea erabaki nuen, Elizmendira, herriaren **goiko aldera** , eta hantxe gertatu zen ustekabea. Bernardo Atxaga

Argi eta garbi dago ibaiaren **goiko aldean** meatzaritza lanak egiten badituzte, horren eragina ibaiaren beheko aldean bizi direnek ere igarriko dutela. Berria - Gaiak

Hispanista (Nissa Torrents) koadroko **goiko aldean** ageri diren katuak zenbait adituk Picassok egin zituela diote Bartzelonako Els Quatre Gats kafetegi ezagunaren ikur izan ziren. Berria - Kultura

Lehendabiziko irakurraldian, gutunak bazuen egiantzaren itxura: **goiko aldean** alkatearen argazkia agertzen zen eta, amaieran, bere sinadura. Txema Ramirez de la Piscina

Uda giroa, irakurtzen du aurrean duen orrialdearen **goiko aldean** . Jokin Muñoz

56 ***haize alde*** *adlag* ik **haizealde**.

Bela biak **haize** alde, badian sartzearren. Koldo Izagirre

Oihalak **haize** alde zabaldu eta sarraskia eta haragi festa hasi aurretik alde egin. Joxan Elosegi

Orain dena **haize** alde doakiola ematen du. Fernando Rey

Hasian hasi eta **haize** -alde, egokiera probestea erabaki nuen. Aingeru Epaltza

57 *ilargiaren alde ezkutu*

Ilargiaren alde ezkutu famatua izanen da, hemendik baizik ikusten ahal ez dena. Xabier Montoia

58 *iluntze alde*

Gehienak arratsalde eta **iluntze** aldean pilatuko badira ere, hasierako kontzertua eguerdian izango da. Berria - Kultura

Zatoz behean jarri dizudan helbidera, nire landetxe berrira, datorren ostiralean, hilak hamabost, **iluntze** aldean. Aitor Arana

Iluntze aldean zuri lagun egiteko urrutitik: orain aretora doa, orain esertzera doa. Eduardo Matauko

Iluntze aldeko berbaldietan. Xabier Montoia

Iluntze aldera Bilboko suhiltzaileak etorri ziren. Lutxo Egia

Hamabi gizon etxeratu omen ziren **iluntze** aldera. Pako Aristi

59 *izter alde* *(orobat* ***izterralde****)*

Gerrikoaz astintzen zizkion **izterraldeak** . Juan Garzia

Gaur du Lizasok entrenamendua **izterraldeak** eutsiko dion edo ez jakiteko. Berria - Kirola

Estaltzen ninduten tapakiak baztertu nituen eta eskuak eraman nituen **izter** aldera. Xabier Mendiguren Elizegi

· Ipini okela-zatiak, zatirik onenak, **izter** eta bizkarraldea Elizen arteko biblia

60 *landa-alde* *(orobat* ***landalde*** *g.er.)*

Hungariako **landa-aldean** . Oskar Arana

Valentzia inguruko **landa** aldea, emankorra izanagatik ere, ez zitzaion gustatzen. Josu Zabaleta

Vermonteko **landa-aldeko** bigarren mailako errepide batean. Oskar Arana

Varsoviatik **landa** aldera aldendu ginen igande batez, zelai batean askaria egiteko asmotan. Harkaitz Cano

Baina non aurkituko dugu **landa** -aldean lursail bat erosteko dirua? Oskar Arana

Landa-aldeko urrutiko lekuren batera bizitzera joango zelako ideia zozokeria hutsa iruditzen zitzaidan. Oskar Arana

-Carolinan -esaten du, silabak luzatuz, astelehenean entzun nion **landa-aldeko** hegoaldeko azentu berarekin. Oskar Arana

61 ***mendebal alde*** *(**13** agerraldi, **5** liburutan eta **6** artikulutan)* ik **mendebalde**.

Afrika **mendebal aldetik** bi alderdien baketzerat jin jaunek hautsi mautsi bat muntatu dute, bainan hura baztertu du Gbagbo presidentak, sobera abantail emaiten ziotela

jazarleri. Herria

Kasernaren aurrez aurre, eta **mendebal aldeko** kaxko baten gainean, dorretxo borobil zahar-zahar bat zegok, aspaldixko honetan zaharrakatzen hasia. Txillardegi

Ondoko astezkenean, irailaren 1an, egundainokotan berriz Ibañeta pean ziren beilari hetarik zenbait, eta, guziz, **mendebal aldeko** baxenabartarrak. Herria

62 *negu alde* ik **negualde**.

Zehatzago begira, **negu aldea** euritsuenik portatzen dela ikusten da Pontevedra aldean. Pello Zabala

Kirola gehienetan **negu aldean** egiten diren zoin gehiagokak bururatzen ari dire. Herria

Larrañagak esan du **negu aldean** barrurako zenbait saio egiten dituztela, baina jaialdi denboraldia «San Isidrotan hasi eta San Martin inguruan» amaitzen dutela. Berria - Kultura

Negu aldean ez bezala, elurteak gutxitu ahala, lehorte idorren kontuak ugaltzen dira apirilean eta hortik aurrerako sasoietan. Pello Zabala

Surf ekimenak urte osoan burutzen badituzte ere, saltegia itxita egoten da, **negu aldera** jende gutxi ikusten delako Getariako karriketan. Berria - Harian

Hain zuzen ere, uzta garaia bukatzean, eta ondorioz ahora zer eramana bukatzean, **negu aldera** ugaltzen baitziren eske kontuak eta kantuak gure alderdi honetan, batez ere Fraintzi aldetik, Santiobidea barrena. Patziku Perurena

· SPUC elkarteak baditu **negu alde** egiten diren xapelgoetan abiatuak edo laster abiatuko talde edo pare andana ederrak. Herria

63 *txanponaren beste alde*

Hain zuzen ere, oso bestelakoa da, **txanponaren beste aldeari**, politikoari erreparatuz ikus daitekeena. Iñaki Heras

Txanponaren beste aldea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Izan ere, **txanponaren beste aldean**, badira arrasto sakona utzi duten fitxaketak. Berria - Kirola

Hala ere, **txanponaren beste aldea** ere aintzat hartu behar da. Berria - Euskal Herria

Buruak barre egiteko agintzen dit, baina ni naizen **txanponaren beste aldeak**, bihotzak, Capitán Truenorekin lotarazten dit pezeta. Joxerra Garzia

Askoz interesgarriagoa azaltzen zaigu, horratik, **txanponaren beste aldea**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Oso ederki, labur esateko; baina (**txanponaren beste aldea**), desilusioa eragiten du. Josu Zabaleta

64 *urpeko alde*

Ontzi bietako **urpeko aldeak** berdintsu imajinatu ahal nituen bi-biak; itsasoko belarrez, auka txikiz, zuretako mangolino janezinez, txirlatxo ezgauzez eta halakoez estalita eta uretako mamarruek plagatuta. Edorta Jimenez

65 *zeru alde* *adlag ipar* zeru aldera. ik **zerualde**.

Hoien urrats eta kantu airosak hegaldatu dira **zeru alde**. Herria

Kasik sekula elizarat ez jiten-eta, hortxe zaudezte bi eskuak junt, begiak **zeru-alde**, alegia sinestez eta urrikiz gaindituak! Herria

Airatu zauku **zeru alde**, Gerezieta Zalbideko amatxi maitea. Herria

Airatu zauku **zeru alde**, Gerezieta Zalbideko amatxi maitea. Iduri sastakaiak **zeru alde** miran. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

aberriaren alde (54); **akordioaren alde** (11); **aldaketaren alde** (23); **aldatzearen alde** (13)

alde agertu (459); **alde agertu da** (71); **alde agertu dira** (55); **alde agertu zen** (169); **alde agertu ziren** (63); **alde agertuko** (16); **alde agertzea** (15); **alde agertzen** (36); **alde agertzen da** (12); **alde ala** (18); **alde aldean** (12); **alde anitzeko** (11); **alde apustu** (29); **alde ari** (94); **alde aritu** (21); **alde asko** (13); **alde askoko** (17); **alde askotatik** (20); **alde atera** (35); **alde atera zen** (13); **alde aterako** (13); **alde ateratzen** (12); **alde azaldu** (58); **alde azaldu da** (15); **alde azaldu zen** (16); **alde baino** (14); **alde baizik** (13); **alde bakar** (16); **alde bakarra** (36); **alde bakarreko** (102); **alde bakarrekoa** (15); **alde bakoitzak** (43); **alde bakoitzean** (28); **alde bakoitzetik** (13); **alde banatako** (15); **alde banatan** (132); **alde banatara** (33); **alde banatatik** (18); **alde bat** (463); **alde batean** (329); **alde batean eta** (29); **alde batean utzi** (31); **alde batean utzita** (24); **alde batek** (25); **alde bateko** (107); **alde bateko eta** (23); **alde bateko zein** (14); **alde batekoa** (12); **alde batekoak** (15); **alde baten** (19); **alde batera** (2049); **alde batera baztertu** (12); **alde batera begira** (11); **alde batera begiratu** (12); **alde batera begiratzen** (12); **alde batera edo** (31); **alde batera eta** (149); **alde batera utz** (21); **alde batera utzi** (473); **alde batera utziko** (39); **alde batera utzirik** (94); **alde batera utzita** (352); **alde batera utziz** (67); **alde batera uztea** (65); **alde batera uzteko** (77); **alde batera uzten** (115); **alde batera zein** (12); **alde baterantz** (18); **alde baterat** (28); **alde batetik** (2497); **alde batetik bestera** (227); **alde batetik eta** (76); **alde batetik ez** (15); **alde bati** (14); **alde batzuetan** (11); **alde batzuk** (13); **alde biak** (44); **alde biek** (48); **alde bien** (20); **alde bietako** (23); **alde bietan** (49); **alde bietara** (20); **alde bietatik** (23); **alde biko** (58); **alde bizia** (17); **alde borroka** (36); **alde borroka egiteko** (12); **alde borrokan** (47); **alde borrokan ari** (18); **alde borrokatu** (61); **alde borrokatuko** (14); **alde borrokatzea** (12); **alde borrokatzeko** (22); **alde borrokatzen** (50); **alde borrokatzera** (11); **alde bozkatu** (190); **alde bozkatu dute** (21); **alde bozkatu zuen** (24); **alde bozkatu zuten** (66); **alde bozkatuko** (53); **alde bozkatzea** (17); **alde bozkatzeko** (31); **alde bozkatzen** (17); **alde da** (12); **alde dago** (85); **alde dagoela** (51); **alde dagoen** (35); **alde daude** (51); **alde daudela** (33); **alde dauden** (41); **alde daudenak** (12); **alde dela** (12); **alde dena** (12); **alde diharduten** (12); **alde dira** (23); **alde direla** (18); **alde diren** (22); **alde ditu** (19); **alde du** (23); **alde duen** (11); **alde ederra** (73); **alde ederra dago** (11); **alde ederreko** (14); **alde edo** (85); **alde edo kontra** (50)

alde egin (3656); **alde egin ahal** (11); **alde egin arte** (18); **alde egin aurretik** (50); **alde egin baino** (52); **alde egin baitzuen** (12); **alde egin behar** (268); **alde egin beharko** (44); **alde egin beharra** (64); **alde egin beharrean** (17); **alde egin bezain** (12); **alde egin dezan** (18); **alde egin dezaten** (18); **alde egin du** (203); **alde egin duela** (14); **alde egin duen** (18); **alde egin duenean** (15); **alde egin dut** (18); **alde egin dute** (99); **alde egin duten** (19); **alde egin eta** (163); **alde egin ez** (25); **alde egin ezak** (18); **alde egin genuen** (22); **alde egin izan** (18); **alde egin izana** (16); **alde egin nahi** (122); **alde egin nuen** (116); **alde egin nuenean** (11); **alde egin omen** (22); **alde egin ondoren** (29); **alde egin orduko** (11); **alde egin ostean** (11); **alde egin zenuen** (12); **alde egin zezan** (16); **alde egin zion** (26); **alde egin zuela** (45); **alde egin zuen** (856); **alde egin zuenean** (63); **alde egin zuenetik** (17); **alde egin zuten** (292); **alde egin zutenean** (29); **alde egina** (97); **alde egina zela** (12); **alde egina zen** (32); **alde eginak** (43); **alde eginak ziren** (16); **alde eginda** (50); **alde egindako** (134); **alde egindako lana** (21); **alde egindako lanagatik** (13); **alde egindakoan** (22); **alde eginen** (58); **alde eginez** (60); **alde eginez gero** (17); **alde egingo** (399); **alde egingo du** (52); **alde egingo duela** (25); **alde egingo duen** (12); **alde egingo dugu** (17); **alde egingo dut** (19); **alde egingo dute** (15); **alde egingo dutela** (16); **alde egingo zuela** (14); **alde egingo zuen** (18); **alde egingo zutela** (12); **alde eginiko** (27); **alde egitea** (368); **alde egitea da** (12); **alde egitea erabaki** (41); **alde egitea lortu** (16); **alde egiteagatik** (14); **alde egiteak** (19); **alde egitean** (44); **alde egitearen** (11); **alde egiteko** (656); **alde egiteko agindu** (15); **alde egiteko asmoa** (12); **alde egiteko baimena** (11); **alde egiteko erabakia** (11); **alde egiteko esan** (17); **alde egiteko eskatu** (47); **alde egiteko eta** (14); **alde egiteko gogoa** (15); **alde egiteko prest** (13); **alde egitekotan** (16); **alde egiten** (857); **alde egiten ari** (30); **alde egiten badu** (13); **alde egiten du** (93); **alde egiten duela** (23); **alde egiten duen** (33); **alde egiten dugu** (13); **alde egiten dut** (13); **alde egiten dute** (58); **alde egiten dutela** (18); **alde egiten duten** (28); **alde egiten ez** (19); **alde egiten hasi** (14); **alde egiten utzi** (23); **alde egiten utziko** (11); **alde egiten zuen** (68); **alde egiten zuten** (41); **alde egitera** (68); **alde egitera behartu** (13); **alde egiterakoan** (33); **alde egizu** (16); **alde egizue** (12)

alde egon (34); **alde egongo** (11); **alde egotea** (15); **alde eman** (19); **alde ere** (64); **alde erregutu** (11); **alde esan** (14); **alde eta** (312); **alde eta fabore** (14); **alde eta kontra** (21); **alde euskal** (19); **alde ez** (56); **alde ezer** (19); **alde gaude** (35); **alde gutxi** (12); **alde guzietan** (14); **alde guzietara** (17); **alde guzietarik** (25); **alde guztia** (13); **alde guztiak** (54); **alde guztiei** (11); **alde guztiek** (53); **alde guztien** (38); **alde guztietako** (16); **alde guztietan** (157); **alde guztietara** (111); **alde guztietarantz** (18); **alde guztietatik** (297); **alde handi** (21); **alde handia** (159); **alde handia dago** (44); **alde handia dagoela** (14); **alde handiagoa** (12); **alde handiak** (40); **alde handiak daude** (11); **alde handiarekin** (17); **alde handirik** (101); **alde handirik ez** (21); **alde handiz** (40); **alde hartako** (13); **alde hartan** (41); **alde hartara** (23); **alde hartatik** (15); **alde hau** (20); **alde hemendik** (136); **alde hitz** (51); **alde hitz egin** (33); **alde hitz egiten** (11); **alde honetan** (55); **alde honetara** (20); **alde honetatik** (31); **alde hori** (107); **alde horiek** (19); **alde horrek** (13); **alde horretan** (56); **alde horretara** (14); **alde horretarik** (18); **alde horretatik** (581); **alde horretatik begiratuta** (11); **alde horretatik ere** (17); **alde horretatik ez** (29); **alde horri** (16); **alde hortako** (22); **alde hortan** (120); **alde hortarik** (25); **alde hura** (25); **alde iluna** (12); **alde indarrak** (11); **alde irten** (29); **alde irten zen** (25); **alde izan** (75); **alde izanez** (11); **alde izango** (29); **alde jarri** (69); **alde jarri zen** (11); **alde jarriko** (13); **alde jartzeko** (13); **alde jartzen** (23); **alde jo** (11); **alde joan** (18); **alde jokatu** (36); **alde jokatzea** (14); **alde jokatzeko** (14); **alde jokatzen** (23); **alde lan** (301); **alde lan egin** (40); **alde lan egingo** (27); **alde lan egitea** (34); **alde lan egiteko** (83); **alde lan egiten** (65); **alde lanean** (99); **alde lanean ari** (23); **alde lanean jarraituko** (12); **alde lanean jarraitzeko** (12); **alde lelopean** (18); **alde mintzatu** (53); **alde mintzatu zen** (26); **alde nabarmena** (26); **alde nabarmenak** (14); **alde nago** (23); **alde nagusia** (15); **alde on** (51); **alde on eta** (24); **alde ona** (64); **alde ona ere** (13); **alde onak** (74); **alde onak eta** (39); **alde onik** (14); **alde orotara** (18); **alde orotarik** (15); **alde otoitz** (54); **alde otoitz egin** (18); **alde polita** (17); **alde pollita** (19); **alde topa** (12); **alde txar** (14); **alde txarra** (23); **alde txarrak** (24); **alde txiki** (17); **alde txikia** (22); **alde txikiarekin** (11); **alde zaharra** (39); **alde zaharrak** (12); **alde zaharraren** (12); **alde zaharrean** (104); **alde zaharreko** (135); **alde zaharrera** (15); **alde zaharretik** (13); **alde zegoen** (35); **alde zeharkatu** (17); **alde zeharkatzen** (20); **alde zen** (12); **alde zerbait** (30); **alde zeuden** (24); **alde ziren** (15); **alde zuen** (11)

aldeak alde (22); **aldenik alde** (18); **alderdikeriak alde** (15); **alderdikeriak alde batera** (15); **alderik alde** (221); **alderik alde zeharkatu** (14); **alderik alde zeharkatzen** (18); **aldez alde** (12); **aren alde** (29); **arimaren alde** (23); **aroa alde** (21); **aroa ere alde** (21); **artean alde** (50); **artean alde handia** (12); **arteko alde** (41); **askatasunaren alde** (88); **askok alde** (13); **aukera horren alde** (16); **aukeraren alde** (22); **aurretik alde** (18); **aurretik alde egin** (11); **autodeterminazio eskubidearen alde** (19); **autodeterminazioaren alde** (42); **azkar alde** (13); **azkenean alde** (13); **bada alde** (11); **badu alde** (19); **badu bere alde** (12); **baiaren alde** (36); **baiezkoaren alde** (33); **baina alde** (101); **baina alde egin** (15); **baina beste alde** (13); **bake prozesuaren alde** (13); **bakearen alde** (146); **bakearen alde lan** (20); **bat alde** (47); **bat alde batera** (13); **batasunaren alde** (49); **batean alde** (38); **batean alde egin** (17); **batek alde** (21); **batekin alde** (21); **batekin alde egin** (11); **baten alde** (367); **baten alde egin** (34); **baten alde egingo** (13); **baten alde egiten** (12); **baten alde lan** (19); **batera alde** (22); **batera alde egin** (14); **batzu alde** (19); **batzuen alde** (24); **batzuk alde** (20); **batzuk alde batera** (13); **berak alde** (14); **beraren alde** (41); **berdintasunaren alde** (19); **bere alde** (305); **bere alde ona** (22); **bere buruaren alde** (12); **bere herriaren alde** (11); **berehala alde** (39); **berehala alde egin** (24); **beren alde** (54); **berri baten alde** (13); **berriaren alde** (23); **bertan alde** (19); **bertatik alde** (21); **beste alde** (474); **beste alde bat** (12); **beste alde batera** (52); **beste alde batetik** (353); **bestearen alde** (25); **besteen alde** (13); **beti alde** (16); **betiko alde** (17); **bezala alde** (14); **bi alde** (62); **biktimen alde** (16); **bilboko alde** (17); **bizian alde** (17); **bizian alde egin** (13); **bizianen alde** (13); **bizitzaren alde** (35); **boz alde** (15); **bultzatzearen alde** (15); **burua alde** (50); **burua alde batera** (36); **buruaren alde** (26); **burujabetzaren alde** (11); **bushen alde** (15); **da alde** (122); **da alde batera** (14); **da alde batetik** (16); **dago alde** (42); **dago alde handirik** (25); **dagoen alde** (18); **dela alde** (23); **demokratiko baten alde** (12); **demokratikoaren alde** (27); **demokratikoen alde** (16); **demokraziaren alde** (27); **den alde** (16); **dena alde** (22); **dena du alde** (13); **denak alde** (25); **denek alde** (12); **departamenduaren alde** (41); **dio alde** (15); **dira alde** (60); **ditu alde** (20); **dituen alde** (15); **donostia alde** (11); **donostiako alde** (15); **du alde** (100); **du alde egin** (13); **du bere alde** (24); **duela alde** (13); **duen alde** (19); **dugu alde** (23); **duin baten alde** (14); **dut alde** (30); **dute alde** (61); **duten alde** (17); **duten eskubidearen alde** (11); **dutenen alde** (13); **duzu alde** (16); **edo alde** (38); **edo bestearen alde** (14); **egiaren alde** (22); **egin eta alde** (12); **egin zuen alde** (25); **egin zuten alde** (14); **egitearen alde** (73); **egitearen alde agertu** (25); **egunkariaren alde** (27); **elkarrizketaren alde** (53); **eman eta alde** (20); **ematearen alde** (27); **en alde** (45); **ene alde** (13); **erabakiaren alde** (13); **erabakitzeko eskubidearen alde** (15); **erabiltzearen alde** (13); **eraikuntzaren alde** (12); **eratzearen alde** (11); **ere alde** (156); **ere alde egin** (33); **ereduaren alde** (17); **erraustearen alde** (11); **erregearen alde** (11); **errepublikaren alde** (36); **esan eta alde** (14);

esan gabe alde (18); eskubidearen alde (72); eskubideen alde (274); eskubideen alde lan (24); estatutuaren alde (11); eta alde (944); eta alde bat (19); eta alde batera (55); eta alde batetik (23); eta alde egin (308); eta alde egingo (18); eta alde egitea (11); eta alde egiteko (35); eta alde egiten (54); eta alde guztietatik (21); eta alde horretatik (65); eta alderik alde (13); eta askatasunaren alde (16); eta bakearen alde (25); eta beste alde (26); eta burua alde (11); eta elkarrizketaren alde (13); eta euskararen alde (20); eta gero alde (14); eta handik alde (20); eta haren alde (23); eta herriaren alde (15); eta horren alde (26); eta konponbidearen alde (11); eta politikoen alde (39)

eko alde (36); eko alde zaharrean (17); eko alde zaharreko (11); etxearen alde (12); etxekoen alde (17); etxera alde (16); etxetik alde (161); etxetik alde egin (90); etxetik alde egiteko (11); etxetik alde egiten (17); euren alde (42); europaren alde (27); euskal departamenduaren alde (34); euskal herriaren alde (46); euskal herritik alde (21); euskal kulturaren alde (49); euskal presoen alde (37); euskararen alde (242); euskararen alde egiten (13); euskararen alde lan (14); eustearen alde (11); ez alde (80); ez alde batera (13); ez alde egin (12); ez da alde (20); ez dago alde (27); ez du alde (24); ez dut alde (11); ez zuen alde (23); ezaren alde (42); ezartzearen alde (20); ezezkoaren alde (19); gabe alde (84); gabe alde egin (53); garapenaren alde (12); gasteizko alde (11); gazteen alde (12); gaztetxearen alde (16); gelatik alde (15); gero alde (29); gerraren alde (12); giza eskubideen alde (51); gizonak alde (14); gobernuaren alde (21); gure alde (148); guztia alde (14); guztiak alde (55); guztiak alde batera (26); guztiek alde (24); guztiek alde egin (11); guztien alde (41); haiek alde (23); haien alde (85); haizea alde (17); handik alde (111); handik alde egin (51); handik alde egiteko (29); haren alde (209); haren alde egin (14); hark alde (19); hark alde egin (12); hartatik alde (12); hartu eta alde (30); hartzearen alde (25); hau alde (17); hauen alde (14); heien alde (13); hemendik alde (71); hemendik alde egin (27); hemendik alde egiteko (19); herri honen alde (12); herrialdetik alde (15); herriaren alde (153); herriaren alde lan (15); herritarren alde (13); herritik alde (54); herritik alde egin (33); hire alde (15); hiriaren alde (13); hiriko alde (15); hiritik alde (24); hiritik alde egin (13); hitz egitearen alde (11); hizkuntz eskubideen alde (12); hizkuntza eskubideen alde (11); hizkuntzaren alde (18); honen alde (52); honetan alde (11); honetatik alde (16); hori alde (70); hori alde batera (28); hori alde batetik (19); horiek alde (34); horiek alde batera (19); horien alde (56); horren alde (271); horren alde agertu (13); horren alde egin (22); horren alde egiten (13); horren alde lan (13); hzren alde (16); ibaiaren alde (11); iguzki alde (11); ikastolaren alde (31); ikastolen alde (22); independentziaren alde (61); ingurumenaren alde (24); inoren alde (12); interesen alde (35); iraketik alde (22); iraketik alde egin (12); irratiaren alde (16); iruñ iruñ iruñ israelen alde (22); itunaren alde (12); izatearen alde (35); jarraitzearen alde (15); jartzearen alde (15); jende alde (69); jende alde ederra (20); jende alde pollita (13); justiziaren alde (22); kalearen alde (11); kasik alde (17); kasik alde bat (14); kausaren alde (12); konponbide demokratikoaren alde (14); konponbidearen alde (63); konstituzioaren alde (26); kontuak alde (11); kontuak alde batera (11); korrika alde (21); korrika alde egin (19); kulturaren alde (60); langileen alde (11); lasterka alde (20); lasterka alde egin (13); legearen alde (34); lehenago alde (15); lehenbailehen alde (22); mahaiaren alde (24); mantentzearen alde (12); mugaren alde (22); munduaren alde (18); munduko alde (18); neure alde (23); nik alde (29); nik alde egin (12); nire alde (156); noiz alde (17); nola alde (15); norabait alde (11); noren alde (39); normalizazioaren alde (18); nuen alde (20); onartzearen alde (18); orain alde (16); orduan alde (11); osasunaren alde (17); oso alde (23); osoaren alde (16); pilotaren alde (20); planaren alde (27); politikaren alde (13); politikoaren alde (25); politikoen alde (56); presaka alde (12); presoen alde (89); presoen eskubideen alde (46); proiektuaren alde (31); proposamenaren alde (50); prozesuaren alde (29); publikoaren alde (17); ren alde (36); sartzearen alde (24); selekzioaren alde (13); sistemaren alde (15); soilik alde (11); sortzearen alde (27); sozialaren alde (20); taldearen alde (26); utzi alde (15); utzi eta alde (19); uztearen alde (22); zegoen alde (14); zein alde (16); zen alde (52); zer alde (19); zerbaiten alde (19); zeren alde (24); zergatik alde (18); zergatik alde egin (15); zerrendaren alde (12); zeru alde (12); zion alde (12); ziren alde (27); zituen alde (37); ziztu bizian alde (14); zortea alde (17); zuela alde (14); zuen alde (179); zuen alde egin (20); zuk alde (17); zure alde (81); zuten alde (55)

aldea atera (125); aldea atera zieten (12); aldea atera zion (73); aldea aterata (29); aldea ateratzen (40); aldea ateratzen dio (16); aldea baino (15); aldea da (20); aldea dago (58); aldea du (41); aldea dute (13); aldea egin (12); aldea egiten (15); aldea egon (15); aldea ere (39); aldea eta (29); aldea ez (37); aldea ez da (20); aldea gainditu (12); aldea handia (13); aldea handitu (25); aldea handitzen (13); aldea hutsean (14); aldea izan (26); aldea kendu (30); aldea kendu zion (16); aldea kentzen (26); aldea lortu (105); aldea lortu zuen (53); aldea lortu zuten (25); aldea murrizten (21); aldea zuen (29); aldea zuten (12); aldeak ados (15); aldeak alde (22); aldeak dira (16); aldeak eta (12); aldeak ez (29); aldeak ez dira (11); aldeak handiak (11); artean dagoen aldea (15); arteko aldea (254); arteko aldeak (76); atzeko aldea (13); aurreko aldea (16); bateko aldea (28); bederatzi goleko aldea (13); beheko aldea (12); beraren bi aldeak (16); beste aldea (50); beste aldeak (14); bi aldeak (198); bi aldeak ados (15); bi aldeak dira (15); bi goleko aldea (20); bien arteko aldea (23); bost puntuko aldea (16); da aldea (31); dagoen aldea (38); dauden aldeak (17); duen aldea (13); erdiko aldea (17); eta aldea (31); goiko aldea (24); gol aldea (22); goleko aldea (144); goleko aldea lortu (40); hiru goleko aldea (19); hiru puntuko aldea (21); kiloko aldea (16); lau goleko aldea (19); lau puntuko aldea (20); minutuko aldea (48); minutuko aldea lortu (12); nolako aldea (11); puntu aldea (11); puntuko aldea (157); puntuko aldea ateratzen (22); puntuko aldea kentzen (15); segundoko aldea (168); segundoko aldea atera (68); segundoko aldea aterata (14); segundoko aldea lortu (21); segundoko aldea zuen (12); sei goleko aldea (32); sei puntuko aldea (13); urteko aldea (13); zazpi goleko aldea (11); zazpi puntuko aldea (12); zen aldea (28); zuen aldea (25); zuten aldea (13)

alde aldean (12); aldean beste (18); aldean bizi (24); aldean dago (29); aldean dagoen (16); aldean den (11); aldean duen (13); aldean eraman (13); aldean eramaten (14); aldean ere (73); aldean eta (103); aldean ez (42); aldean izan (25); aldean jarri (14); aldean oso (21); aldean zegoen (50); aldean zeraman (17); amaiera aldean (11); asturias aldean (11); atearen beste aldean (14); atzeko aldean (103); aurreko aldean (48); azpiko aldean (19); baiona aldean (15); barneko aldean (22); bat aldean (12); baten aldean (19); batzuen aldean (17); baztan aldean (13); beheko aldean (71); bere aldean (23); bertze aldean (19); beste aldean (611); beste aldean zegoen (25); besteen aldean (17); beti aldean (19); bilbo aldean (23); bizkai aldean (51); bostak aldean (11); branka aldean (12); bukaera aldean (15); bular aldean (22); denaren aldean (11); donostia aldean (12); eguerdi aldean (30); erdi aldean (13); errepidearen beste aldean (11); eskuin aldean (64); eskuineko aldean (22); espainia aldean (16); eta aldean (15); eta beste aldean (24); ezker aldean (59); ezkerreko aldean (24); frantsesaren aldean (18); frantzia aldean (13); gaineko aldean (28); garazi aldean (12); gasteiz aldean (12); gaztela aldean (19); goi aldean (13); goierri aldean (13); goiko aldean (76); gure aldean (16); guztien aldean (21); haien aldean (23); hamarrak aldean (11); haren aldean (45); hariaren beste aldean (13); hego aldean (15); hesiaren beste aldean (15); horien aldean (18); horren aldean (29); ibaiaren beste aldean (13); ipar aldean (11); kanpo aldean (24); kanpoko aldean (30); katalunia aldean (13); madril aldean (14); mahaiaren beste aldean (14); mediterraneo aldean (12); mendi aldean (12); nafarro aldean (11); nafarroa aldean (12); nire aldean (14); ofizialtasuna frantsesaren aldean (12); parise aldean (11); valentzia aldean (15); zenaren aldean (15); zeraman aldean (12)

aldearekin irabazi (23); aldeari buelta (13); aldeari eusteko (13); aldeari eutsi (25); aldeaz galdu (14); aldeaz irabazi (22); bateko aldearekin (14); bateko aldeaz (11); beste aldearen (11); beste aldeari (11); eutsi zion aldeari (14); goleko aldearekin (28); goleko aldeari (24); goleko aldeaz (23); goleko aldeaz irabazi (12); puntuko aldearekin (18); segundoko aldearekin (29); segundoko aldeaz (13); sei goleko aldearekin (12); zion aldeari (17)

aldeen artean (40); aldeen arteko (84); bi aldeei (45); bi aldeek (247); bi aldeen (154); bi aldeen artean (29); bi aldeen arteko (69); bi aldeentzat (16); bi aldeetako (96); bi aldeetan (132); bi aldeetatik (52); dute bi aldeek (19); eta bi aldeek (12); zuten bi aldeek (40)

aberriaren aldeko (18); adierazpen askatasunaren aldeko (18); aitaren aldeko (15); akordioaren aldeko (13); aldeko adierazpen (11); aldeko agertu (30); aldeko agertu zen (18); aldeko aldarria (54); aldeko aldarria egin (15); aldeko aldarrikapena (26); aldeko aldarrikapenak (11); aldeko apostua (28); aldeko apostua egin (15); aldeko apustu (66); aldeko apustu garbia (20); aldeko apustua (415); aldeko apustua berretsi (12); aldeko apustua egin (181); aldeko apustua egingo (22); aldeko apustua egitea (19); aldeko apustua egiteko (19); aldeko apustua egiten (58); aldeko argudioak (11); aldeko arrazoiak (12); aldeko aukera (25); aldeko barkamen (19); aldeko barkamen ohikunea (16); aldeko batasuna (13); aldeko bere (14); aldeko besta (13); aldeko beste (32); aldeko bi (20); aldeko borroka (73); aldeko borrokak (23); aldeko borrokan (65); aldeko borrokaren (17); aldeko borrokari (11); aldeko boto (19); aldeko botoa (163); aldeko botoa eman (55); aldeko botoa eskatu (18); aldeko botoak (16); aldeko botoekin (32); aldeko boza (65); aldeko boza eman (22); aldeko defentsa (16); aldeko deia (27); aldeko dinamika (16); aldeko diru (18); aldeko diskurtsoa (13); aldeko ebazpena (14); aldeko edo (12); aldeko eguna (14); aldeko ekimen (13); aldeko ekimena (23); aldeko ekimenak (27); aldeko ekintza (15); aldeko ekintzaile (14); aldeko ekitaldia (28); aldeko elkarretaratzea (21); aldeko elkartasun (16); aldeko elkarte (14); aldeko elkartea (12); aldeko elkarteak (26); aldeko elkarteek (13); aldeko elkarteko (14); aldeko epaia (15); aldeko erabakia (26); aldeko erakunde (11); aldeko erakundeak (53); aldeko erakundearen (18); aldeko erakundearen arabera (12); aldeko erakundeek (52); aldeko erakundeen (22); aldeko erakundeen arabera (12); aldeko erakundeko (12); aldeko eta (90); aldeko eta kontrako (27); aldeko ezkia (21); aldeko giroa (11); aldeko gizarte (13); aldeko hainbat (33); aldeko haizea (14); aldeko hautetsien (14); aldeko hautua (73); aldeko hautua egin (38); aldeko herri (34); aldeko hileta elizkizunak (16); aldeko hitzak (14); aldeko indar (22); aldeko indarrak (32); aldeko indarrek (15); aldeko indarren (14); aldeko iritzi (19); aldeko iritzia (21); aldeko iritziak (11); aldeko ituna (12); aldeko izan (19); aldeko jarrera (150); aldeko jarrera agertu (11); aldeko jarrera hartu (11); aldeko jarrerak (12); aldeko joera (21); aldeko kanpaina (118); aldeko kanpaina egin (15); aldeko kanpainak (14); aldeko konpromiso (17); aldeko konpromisoa (43); aldeko konpromisoak (16); aldeko koordinakundeak (24); aldeko lana (44); aldeko lanean (19); aldeko leloak (17); aldeko manifestazio (22); aldeko manifestazioa (29); aldeko manifestazioan (14); aldeko manifestua (21); aldeko martxa (14); aldeko mezua (34); aldeko mozioa (15); aldeko mugimendu (20); aldeko mugimendua (45); aldeko mugimenduak (76); aldeko mugimenduaren (21); aldeko mugimenduko (30); aldeko nazioarteko (58); aldeko nazioarteko erakundeak (15); aldeko neurriak (31); aldeko oihuak (39); aldeko plataforma (13); aldeko plataformak (20); aldeko politika (24); aldeko propaganda (15); aldeko sinadurak (11); aldeko sustengu (15); aldeko talde (22); aldeko taldeak (21); aldeko taldeek (39); aldeko taldeen (17); aldeko txetxeniako (13); aldeko urrats (13); aldeko urratsak (23); aldeko zein (14); aldeko zenbait (13)

amaren aldeko (21); amnistiaren aldeko (153); amnistiaren aldeko mugimenduak (59); amnistiaren aldeko mugimenduko (20); animalien aldeko (22); asia aldeko (12); askatasunaren aldeko (93); askatasunen aldeko (14); autodeterminazio eskubidearen aldeko (24); autodeterminazioaren aldeko (127); autodeterminazioaren aldeko indarrak (13); baiezkoaren aldeko (33); baigorri aldeko (17); bakearen aldeko (159); bakearen aldeko koordinakundeak (24); batasunaren aldeko (32); baten aldeko (151); baten aldeko apustua (32); berdintasunaren aldeko (43); bere aldeko (66); berri baten aldeko (14); berriaren aldeko (17); beste aldeko (143); bi aldeko (22); biktimen aldeko (21); bilbo aldeko (11); burujabetzaren aldeko (24); d ereduaren aldeko (15); demokratikoaren aldeko (17); demokratikoen aldeko (17); demokraziaren aldeko (43); departamenduaren aldeko (67); departamenduaren aldeko hautetsien (12); dute euskararen aldeko (11); egitearen aldeko (17); egunkaria ren aldeko (12); elkarrizketaren aldeko (58); elkarrizketaren aldeko apustua (13); emakumeen aldeko (11); emakumeen eskubideen aldeko (15); en aldeko (24); enpleguaren aldeko (12); ere aldeko (11); ereduaren aldeko (20); erreferendumaren aldeko (12); errepublikaren aldeko (17); errusiaren aldeko (12); eskubide zibilen aldeko (13); eskubidearen aldeko (55); eskubideen aldeko (518); eskubideen aldeko borrokan (13); eskubideen aldeko erakundeak (43); eskubideen aldeko erakundearen (15); eskubideen aldeko erakundeek (38); eskubideen aldeko erakundeen (17); eskubideen aldeko hainbat (12); eskubideen aldeko nazioarteko (33); eskubideen aldeko taldeek (25); eskuin aldeko (17); estatutuaren aldeko (28); eta aldeko (29); eta amnistiaren aldeko (16); eta bakearen aldeko (24); eta berdintasunaren aldeko (12); eta demokraziaren aldeko (11); eta euskararen aldeko (17); eta haren aldeko (13); eta politikoen aldeko (23); etaren aldeko (12); etorkinen aldeko (15); euren aldeko (13); europaren aldeko (11); euskal departamenduaren aldeko (43); euskal herriaren aldeko (15); euskal herriratzearen aldeko (11); euskal kulturaren aldeko (24); euskal presoen aldeko (42); euskal selekzioaren aldeko (19); euskararen aldeko (239); euskararen aldeko jarrera (13); ezaren aldeko (16); ezetzaren aldeko (12); ezezkoaren aldeko (46); ezker aldeko (30); garazi aldeko (11); gazteen aldeko (15); gaztetxearen aldeko (16); giza eskubideen aldeko (351); gobernuaren aldeko (47); goiko aldeko (12); gure aldeko (17); guztien aldeko (19); haien aldeko (14); haren aldeko (64); harrobiaren aldeko (21); harrobiaren aldeko apustua (13); hartzearen aldeko (15); hazparne aldeko (48); hazparne aldeko ezkia (21); hego aldeko (28); herriaren aldeko (30); herriaren askatasunaren aldeko (15); herriratzearen aldeko (11); hizkuntzaren aldeko (27); honen aldeko (13); horien aldeko (17); horren aldeko (86); hzren aldeko (28); ikastolen aldeko (20); independentziaren aldeko (76); indigenen aldeko (14); ingurumenaren aldeko (44); inoren aldeko (11); ipar aldeko (19); itunaren aldeko (14); izatearen aldeko (12); jainkoaren aldeko (12); justiziaren aldeko (11); koalizioaren aldeko (13); konponbide demokratikoaren aldeko (12); konponbidearen aldeko (38); konstituzioaren aldeko (21); kulturaren aldeko (40); langileen aldeko (14); mendi aldeko (13); moskuren aldeko (41); navalen aldeko (17); nire aldeko (24); normalizazioaren aldeko (19); okupazioaren aldeko (15); parise aldeko (11); parte hartzearen aldeko (12); politikoaren aldeko (12); politikoen aldeko (48); presidentearen aldeko (16); preso politikoen aldeko (12); presoen aldeko (138); presoen eskubideen aldeko (25); prozesuaren aldeko (15); publikoaren aldeko (12); ren aldeko (29); selekzioaren aldeko (24); sozialaren aldeko (18); subiranotasunaren aldeko (15); unibertsitatearen aldeko (13); zibilen aldeko (20); zuen aldeko (12)

aki aldekoa (16); aki aldekoak (11); aldekoa da (143); aldekoa dela (53); aldekoa den (11); aldekoa eta (26); aldekoa ez (12); aldekoa izan (44); aldekoa izan zen (11); aldekoa izango (15); aldekoa naiz (24); aldekoa zela (18); aldekoa zen (58); aldekoak dira (103); aldekoak direla (12); aldekoak ere (13); aldekoak eta (40); aldekoak eta kontrakoak (21); aldekoak ez (18); aldekoak gara (18); aldekoak izan (38); aldekoak ziren (21); aldekoen artean (20); aldekoen eta (19); bere aldekoak (12); egitearen aldekoa (19); horren aldekoa (18); iñ iñ independentziaren aldekoak (16)

aldenik alde (18)

aldera abiatu (106); aldera abiatu nintzen (12); aldera abiatu zen (39); aldera abiatu ziren (20); aldera arte (28); aldera begira (85); aldera begiratu (83); aldera begiratu nuen (14); aldera begiratu zuen (18); aldera begiratuz (13); aldera begiratzea (11); aldera begiratzen (47); aldera biratu (12); aldera edo (28); aldera egin (79); aldera

egin zuen (27); **aldera egingo** (11); **aldera egiten** (23); **aldera ematen** (25); **aldera eraman** (35); **aldera ere** (15); **aldera eta** (37); **aldera etorri** (12); **aldera gertatu** (41); **aldera gertatu zen** (39); **aldera hartu** (22); **aldera hasi** (25); **aldera hurbildu** (14); **aldera igaro** (18); **aldera iritsi** (28); **aldera itzuli** (41); **aldera itzuli zen** (16); **aldera itzultzen** (11); **aldera izan** (42); **aldera izan zen** (26); **aldera jiratu** (42); **aldera jo** (107); **aldera jo genuen** (13); **aldera jo nuen** (14); **aldera jo zuen** (17); **aldera jo zuten** (16); **aldera joan** (141); **aldera joan zen** (46); **aldera joan ziren** (14); **aldera joango** (11); **aldera joateko** (16); **aldera joaten** (17); **aldera jotzen** (20); **aldera luzatu** (13); **aldera makurtu** (13); **aldera pasatu** (14); **aldera zuzendu** (13); **amaiera aldera** (75); **amaitze aldera** (15); **argitze aldera** (22); **arratsaldeko bostak aldera** (14); **arratsaldeko laurak aldera** (12); **ate aldera** (82); **ate aldera joan** (17); **atzeko aldera** (21); **azken aldera** (81); **baten aldera** (11); **bederatziak aldera** (18); **beheko aldera** (12); **bere aldera** (41); **bermatze aldera** (17); **beste aldera** (381); **beste aldera begira** (28); **beste aldera begiratu** (34); **beste aldera begiratzen** (26); **beste aldera igaro** (11); **beste aldera joan** (16); **beste aldera pasatu** (12); **beste alderaino** (18); **betetze aldera** (12); **biak aldera** (26); **bostak aldera** (38); **bukaera aldera** (73); **dagoen aldera** (11); **donostia aldera** (12); **egite aldera** (33); **eguerdi aldera** (91); **emate aldera** (32); **erdi aldera** (83); **erdiak aldera** (27); **esate aldera** (30); **eskuin aldera** (43); **eta ate aldera** (14); **eta beste aldera** (32); **eta erdiak aldera** (22); **etxe aldera** (38); **ezker aldera** (38); **frantzia aldera** (13); **gatazka konpontze aldera** (12); **gauerdi aldera** (38); **goiko aldera** (13); **goiz aldera** (15); **gure aldera** (26); **haien aldera** (16); **hamaikak aldera** (35); **hamarrak aldera** (34); **haren aldera** (29); **hasiera aldera** (19); **hego aldera** (12); **hiri aldera** (14); **hirurak aldera** (22); **hobetze aldera** (22); **hondartza aldera** (15); **ibai aldera** (19); **ilunabar aldera** (15); **iluntze aldera** (24); **irteera aldera** (11); **itsaso aldera** (13); **kale aldera** (18); **kanpo aldera** (34); **konpontze aldera** (24); **kontrako aldera** (11); **lasaitze aldera** (14); **laurak aldera** (24); **leiho aldera** (25); **lortze aldera** (52); **mendearen bukaera aldera** (16); **mendearen erdi aldera** (18); **mendi aldera** (43); **nire aldera** (41); **ordu biak aldera** (26); **osatze aldera** (15); **plaza aldera** (14); **portu aldera** (12); **saiheste aldera** (23); **seiak aldera** (23); **sendotze aldera** (12); **ulertze aldera** (20); **urte aldera** (15); **zazpiak aldera** (27); **zegoen aldera** (40); **zerbait esate aldera** (12); **zeru aldera** (12); **zortziak aldera** (36); **zuen aldera** (11)

beste alderantz (11); **beste alderat** (17); **euskararen alderako** (17)

agerpenak diren aldetik (18); **agintarien aldetik** (12); **aitaren aldetik** (18); **alderik alde** (221); **alderik alde zeharkatu** (14); **alderik alde zeharkatzen** (18); **alderik ez** (14); **alderik handiena** (23); **aldetik aurrera** (11); **aldetik bai** (19); **aldetik baizik** (12); **aldetik bakarrik** (11); **aldetik behintzat** (18); **aldetik beste** (22); **aldetik edo** (15); **aldetik egin** (20); **aldetik ere** (186); **aldetik ere ez** (11); **aldetik esan** (13); **aldetik eta** (104); **aldetik eta bai** (14); **aldetik etorri** (11); **aldetik ez** (119); **aldetik ez da** (12); **aldetik heldu** (12); **aldetik ibili** (11); **aldetik izan** (12); **aldetik joan** (17); **aldetik oso** (17); **aldetik zetorren** (13); **aldez alde** (12); **aldez aurreko** (57); **aldez aurretik** (902); **aldez aurretik ez** (12); **aldez aurretik ikusten** (12); **aldez aurretik jakin** (19); **aldez aurretik pentsatu** (12); **aldez aurretiko** (64); **aldez edo** (79); **aldez edo moldez** (77); **amaren aldetik** (23); **amaren aldetiko** (13); **aroaren aldetik** (11); **atzeko aldetik** (25); **aurreko aldetik** (11); **bada alderik** (16); **baina aldez** (17); **baina aldez aurretik** (17); **bakoitza bere aldetik** (88); **bakoitzak bere aldetik** (43); **barruko aldetik** (18); **bat den aldetik** (14); **baten aldetik** (11); **batzuen aldetik** (11); **beheko aldetik** (16); **bere aldetik** (1073); **bere aldetik egin** (12); **bere aldetik joan** (15); **beren aldetik** (122); **bertze aldetik** (25); **beste aldetik** (344); **bi aldetako** (63); **bi aldetan** (31); **bi aldetara** (11); **bi aldetarik** (17); **bi aldetatik** (25); **buru aldetik** (11); **da aldez** (16); **da aldez aurretik** (13); **dago alderik** (15); **dagokion aldetik** (12); **den aldetik** (294); **diren aldetik** (121); **diru aldetik** (34); **diruaren aldetik** (17); **dituen aldetik** (19); **du aldez** (12); **du aldez aurretik** (11); **duen aldetik** (45); **ekonomia aldetik** (11); **ekonomiaren aldetik** (25); **ene aldetik** (14); **erakundeen aldetik** (16); **erdi aldetik** (11); **esanahiaren aldetik** (14); **eskuin aldetik** (18); **estatuaren aldetik** (18); **estilo aldetik** (15); **eta alderik** (18); **eta alderik alde** (13); **eta aldez** (81); **eta aldez aurretik** (48); **eta beste aldetik** (25); **euren aldetik** (17); **ez dago alderik** (14); **ezker aldetik** (13); **forma aldetik** (20); **formaren aldetik** (20); **garen aldetik** (27); **geure aldetik** (11); **gobernuaren aldetik** (22); **goiko aldetik** (15); **gure aldetik** (95); **guztien aldetik** (12); **herritarren aldetik** (11); **hizkuntza aldetik** (18); **itsas aldetik** (21); **jarrera aldetik** (16); **jaurlaritzaren aldetik** (12); **joko aldetik** (20); **k bere aldetik** (13); **kanpoko aldetik** (16); **kopuru aldetik** (12); **lege aldetik** (27); **legearen aldetik** (15); **mugaren bi aldetako** (25); **mugaren bi aldetan** (17); **mugaz bi aldetako** (16); **naizen aldetik** (79); **neure aldetik** (29); **nire aldetik** (106); **nire aldetik ez** (11); **nor bere aldetik** (36); **nork bere aldetik** (31); **teknika aldetik** (15); **zaren aldetik** (13); **zein aldetara** (18); **zein aldetatik** (17); **zein bere aldetik** (19); **zen aldetik** (44); **zuen aldetik** (13); **zure aldetik** (13)

---

aldean 1 *adlag/postpos* ondoan, aldamenean, inguruan.

Haatik, txapelak zeru gaina teilaztatu arren, Axenariori burua estutzen dio, kopeta **aldean** . Itziar Otegi

Preseski beldur bat badute, holakorik gertatzen balitz handik urrun ez den Teheran kapitalaren **aldean** , zer ondorio litakeen, zeren 12 miliun jende baita alde hartan, ez ainitz eremutan. Herria

Gaztela **aldean** ere gorde ei da abuztuko ohitura-eskola hau, edo honen antzerakoa. Pello Zabala

Osabaren telebista zaharraren **aldean** , beste zerbait zen hura; osabarenean zarata entzuten zen, eta irudia ahula zen, eta horrek ernegatu egiten gintuen. Juan Kruz Igerabide

Harea koloreko uniformearekin heldu zen eta pistola ere bazekarren Intxorta **aldean** luzaroan ibili ondoren. Joseba Sarrionandia

Gu legearen **aldean** dauden putakumeak gaituk. Harkaitz Cano

Yon Kippur-en emakumeen **aldean** geratu zen sinagogan, eta, errabinoaren emaztea irakurtzen ez zekitenentzat otoitzak esaten ari zela, Henne errietan hasi zitzaien, errabinoari, kantariari, zaharrei. Koro Navarro

Nire gelakideak barrabil **aldean** finkatu zuen atzamarren mugimendua, eta ingurua laztantzeari eman zion, emeki-emeki, irrist eta irrist, begirada lurreko aldizkarian eta nigan ezarriz tarteka. Jon Arretxe

Institutu berria zenez, landareak zituen administrazioa eta irakasleen mintegiak zeuden **aldean** , eta harea-kolorez moketaturiko liburutegi bat. Joseba Urteaga

Deia zenbakitxo bat izaten da eta horren erreferentzia orrialdearen beheko **aldean** agertuko zaizu. Askoren artean

Eritegian herioari zain zegoen lasai asko, argal-argal, larrua hezurretan itsatsia, lepo **aldean** eta, zetaka beztakak antzematen zitzaizkiola. Gotzon Garate

Alde batera edo bestera, lanera edo erretegira joaitekoak gara, gauaz garra darion ifernuko kezilo hari sugaia emaitekoak su hura kanpalekuaren bizkar gorenean da, dei plazaren gaineko **aldean** , zorigaitzeko argia, inguruko hamabost bat herrik ikus dezaketena. Marzel Etxehandi

2 *adlag* erkaketetan.

Nire famak pentsarazten duenaren **aldean** ona naiz, Honorina, eta zuk horretara derrigortu ezean ez diet inola ere zure zerbitzuei uko egingo. Itziar Otegi

Beste batzuei egindakoaren **aldean** , jakina. Koldo Izagirre

Matxinsaltoak ginen gu, haien **aldean** , eta haiek halakotzat gintuzten. Jose Antonio Mujika

Eta zer gaitz du Ertzaintzak, horren **aldean** ? Iban Zaldua

Igarri egiten nuen, adibidez, Santirekin konpartitu ohi nituen pizza espeziatsuen falta, baina, Mister Martinekin edo neska artean pasatu nuen gose itzelaren **aldean** , hirugarren etxe hartan primeran nengoen. Jon Arretxe

Gauzak oso argi ditu eta komunikabideetatik nuen bere irudiaren **aldean** , askoz argiagoa iruditu zait aurrez aurre. Harkaitz Cano

Orain baino elikagai gutxiago kontsumituko ditugu (dieta hipokalorikoa, oraingoaren **aldean**), alferrikako gastua ez egitearren eta, gainera, gutxiago janez gizakia (izakia, oro har) hobeki eta luzeago bizi dela frogatua dagoelako. Edorta Agirre

3 *adlag* norbaitek berarekin izan, eraman, hartu, eduki...

Ezinezkoa da dena **aldean** eraman duena zigortzea, egindakoa egin eta gero. Juan Martin Elexpuru

Ez nuen metalezko pistola atera beharrik ere izan, **aldean** nuen arren, gogor eta desatsegina gerrian trabes gordeta. Joseba Sarrionandia

Kakalarri larriak sarri bezala harrapatu zaitu, ordea: **aldean** paperik ez duzula. Joxerra Garzia

Oroimena da, Cecily maitea, guztiok **aldean** daramagun egunkaria. Antton Olano

Nire aitaren arreba bat, denetarik egiten zuen neskamea, hesian azaltzen zen batzuetan fardela **aldean** zeramala, hitzik esan gabe. Joseba Urteaga

Ez nuen erlojurik **aldean** eta bezero haietako bati ordua galdetzea gauza eragabea iruditzen zitzaidan. Matías Múgica

4 *adlag* denboraz mintzatuz, inguruan. ik **inguru 23**.

Mendi goietan dagoen Larrañe herritik arratsaldeko seiak **aldean** atera nintzen oinez, aldapan gora doan bidean aurrera. Aitor Arana

Goizeko hamarrak **aldean** , gazte livoniarra gela utzi eta zubira igo zen. Karlos Zabala

Goizeko 9.30etan abiaturik, eguerdi **aldean** dira beilariak heldu Frantsixkanoen santutegirat. Herria

5 ***alde-aldean***

Gure artean, ohitura da edozein ahaide zaharri deitzea horrela, are urrun-urrunari: eta, buruen buru, erkidegoko pertsona zahar guztiak baitira, **alde-aldean** , gure ahaide, hortik segitzen da gure osaba-izeben kopurua handia dela noski. Juan Garzia

Nik beste ikaskizun lurtarrago eta konkretuago bat nerabilen gogoan, eta uste dut kimikari militante orok baiezta dezakeela: mesfidatu beharra dagoela "ia-berdin"az (sodioa potasioaren ia berdina da: baina sodioarekin ez zen deus gertatuko), " **alde-aldean** gauza bera"z, "gutxi gora-behera"z eta "edo eta"z, ordezko guztiez eta petatxu guztiez. Juan Garzia

Milanen bizikletaz ibiltzea ez zen artean inolako ausarkeria, eta barra gainean inor garraiatzea, bonba eta iheste larrizko garai hartan, **alde-aldean** normala zen: zenbait aldiz, gauez bereziki, ezezagunek zerbitzu hori eskatzea suertatzen zen, eta hiriaren mutur batetik besterainoko garraialdi bategatik lauzpabost lirako ordain-saria ematea. Juan Garzia

Nonahi, balkoian zein barnean, traste-meta ikaragarri bat zegoen barreiaturik, hain antzinako eta maiztuak guztiak, non **alde-aldean** ezagutezinak baitziren: azterketa arretatsuago batez baino ezin zen bereizi tresneria profesionala domestikotik. Juan Garzia

Ez alferrik zen hori modu **alde-aldean** bakarra nire mutante kuttunetariko batzuen ezaugarriak azaltzeko. Juan Garzia

Eta **alde-aldean** mundu guztia da mundu guztiaren ahaidea. Juan Garzia

Aldi jakin bateko zientzia-idazkiei so egitean, harri eta zur eginik geratzen gara ikusirik mundu guztiak hartzen dituela objektu berak hizpide eta **alde-aldean** gauza bera esaten duela, are beren artean erabat desados daudenek. Juan Garzia

Baina, harritzekoa, ez zuen ematen konturatzen zenik itsua zela, eta **alde-aldera** ibiltzen zen asmatzen ea ni erakusten ari nintzaiona zer zen: bola urdin bat, luma gorri bat (izan, orrazi berde bat, patrikako erloju bat ziren nik erakutsitako gauzak). Xabier Olarra

(Atzerantz begiratuz, geure artean egiten genuen ea **alde-aldean** operazioaren egunetik beretik erakutsitako ikusmeneko gorabehera bitxi haiek ez ote zizkioten, hein batez behintzat, odoleko oxigenoaren gorabeherek eragiten, eta ez ote zion horrek eragiten erretina- eta garun-anoxia. Xabier Olarra

Alde-aldean, begiradak har dezakeen lur guztia. Juan Garzia

Bart gaueantxe, hamaikak **alde-aldean** zirela. Juan Garzia

Aurreko batean hala zekarren, **alde aldera**, espainolez: "Pentsatzen duguna esateak, hizpide biziagoa ematen du, dakiguna errepikatzeak baino". Patziku Perurena

Seguraski aro zoriontsuaren akabaila **alde-aldean** sumatzen nuelako hartu nuen hain gaizki Kristinaren haurdunaldia. Aingeru Epaltza

Hor dago **alde-aldean** Arantzazuko batua osorik, puntu eta komatxo, baita Arantzazuz gerozkoa ere, aditz eta guzti. Koldo Zuazo

Baina urduri zeuden zegoeneko; **alde aldera** bultzaka ari ziren, ukabilak jasorik. Josu Zabaleta

6 *aldean beste*

Arma patiora jalgi gara bokalea **aldean beste** iragaiten duen tentsio altuko kablean pankarta nola zintzilikatu bertan utzita. Koldo Izagirre

Aroak utzi du Prosesioneari epe bat eta hunek Hazparneko karrikak **aldean beste** ereman ditu. Herria

Duela ordu erdi bat, gibelera egitekotan nintzen eta orain aise nabil, arin, ameslari, naturaren hezetasun gizenak ene izaite osoa hartzen didala eta, oinetatik haste, **aldean beste** zeharkatzen nauela. Piarres Aintziart

7 *aldean eduki*

Irribarrez egin diot ongietorria eta irribarrez erantzun diot pasabide estuan utzi dituenean **aldean zeuzkan** zaku biak. Jon Arretxe

Aladinek istantean kendu zion **aldean zeukan** argiontzia, eta jeinuari jauregia Txinara tokialdatzeko agindu. Patxi Zubizarreta

Baina ez du luzaroan **aldean edukiko**, gaur egun munduan diren eskujokari eta inkaminari guztiek ezagutzen baitute, eta aldiro-aldiro etortzen baitira ezer berririk baduen begiratzeko. Josu Zabaleta

Nahiko berria da, laupabost solairu ditu, eta atzeko **aldean dauka** sarrera. Rafa Egiguren

Aldean zeukan diru pixka bat eskaini ere egin zien. Karlos Zabala

Zenbaitetan pentsatu izan dut aurrea hartu zigutela faxistek, gerran gertatu ohi dira halakoak, etsaiak hiltzen duela zuk **aldean daukazun** gorrotagarri hura. Koldo Izagirre

Seguruena berorrek **aldean edukitzea** da. Juan Garzia

Baso **aldean daukan** tailerrera." Amak hasperen egin zuen. Bernardo Atxaga

Beste **aldean neukan** emakumea ez zen mugitu. Jon Muñoz

Dirua **aldean badauka**, ez da berak hori esatearen premiarik izango. Xabier Olarra

Ni whiskya hartzen ari nauk: itsasoz beste **aldean daukaguna** baino hobea. Irene Aldasoro

Handik ordu laurdenera dirua **aldean zeukan** Maizak. Migel Angel Mintegi

Aldean dauzkat orain, etxekoek idatzitako azken-azkeneko gutun kutunak. Mirentxu Larrañaga

8 *aldean eraman*

Nik ez nituen nahi izaten, jakin bainekien Linek ezagutu egingo zituela, baina amak **aldean eramatera** behartzen ninduen. Eskarne Mujika

Aldean neramatzan azterketak zuzentzen hasi nintzen. Joseba Urteaga

Agian, komeni litzaioke armaren bat **aldean eramatea**. Javi Cillero

Berriago bat, jendeak telefonoa **aldean eraman** gabe bizitzen ahaztua zuen garaietarako egokia, opera ikuslearena zen. Imanol Zurutuza

-Ez da batere zuhurra armak **aldean eramatea** - esaten zuen Saget andereñoak -. Karlos Zabala

Eta oixtian, proëllaz ari baitzintzaizkidan, hara, zeremoniaren urrats nagusiak penn-brao **aldean eramaten** ziren. Itxaro Borda

Nire aitaren arreba bat, denetarik egiten zuen neskamea, hesian azaltzen zen batzuetan fardela **aldean zeramala**, hitzik esan gabe. Joseba Urteaga

Nagan pistola bat erosi, handik aurrera beti **aldean eramango** zuen hura. Pablo Sastre

Izugarria da, aldi berean, ume bat bihotz **aldean eramatea** eta herri bat Hitlerri bibaka entzutea. Felipe Juaristi

Liburua eskuko maleta txiki batean sartu nuen **aldean eraman** ahal izateko. Bernardo Atxaga

Pentsatzea ere delitu zen garaian, panfleto batzuk **aldean zeramatzala** eta, kartzelan sartu zuten. Joxerra Garzia

Oroimena da, Cecily maitea, guztiok **aldean daramagun** egunkaria. Antton Olano

Bakarrik gelditu zen, hainbat urtez **aldean eraman** zuen errebolberra gabe. Jose Morales

Gogoratu nuen pistola Frau Streicherrenean utzia nuela, zuhurrago iruditu baitzitzaidan **aldean eramatea** baino. Alberto Ladron Arana

Aldean zeraman zahagia eztiz bete, eta hirirantza itzuli zen. Patxi Zubizarreta

Ez nion esan falangistaren orria hantxe ezkutuan baneraman ere nire beste afiliazio orria, berau ere faltsua, **aldean neramanik**. Edorta Jimenez

9 *aldean hartu*

Eta hi, berriz, halako baten zati batzuk **aldean hartuta** habil! Edorta Jimenez

Jonek eta Mikelek instrumentuak **aldean hartu** eta anplifikadoreak piztu bitartean, Anek zutik zirauen bateriaren aurrean, artelan bati begiratzen zaion moduan. Unai Iturriaga

Segur naiz Jainko onak bere **aldean hartu** dituela gure bi herritarrak eta hortik lagunduko dituztela hemen penetan utzi guziak. Herria

10 *aldean izan*

Gero, azkar batean, gerrikoa seinalaturik, beti **aldean izan**!, esan zidan galtzen gerri barrenean berak jositako poltsatxoagatik. Anjel Lertxundi

Hauxe da maitasunaren arazoa, pertsona maitatuaren ondoan zaudenean ernetzen dena: behatz-muturrak tiraka hasten dira laztanak egiteko, **aldean izan** nahi zenuke maitearen arnasa, ezpainak mugitu egiten dira, irribarre batzuek bihotza ukitzen dizute. Fernando Rey

Baina Tomek haietakoren batean zerbait ezkutatzekotan, giltza edo agiria **aldean izango** zuela pentsaturik, etsi egin behar izan nuen. Patxi Zubizarreta

Eta oraindik **aldean izan** genezakeena, alemanek berdin-berdin kenduko zigutela guztia ziurtatu digu. Urtzi Urrutikoetxea

Aldean izanez, sakez hartu nuen. Daniel Landart

Aldean ziren baratzetako ofizialeak zerbait zehaztasunen emaiteko. Herria

11 ***beste aldean*** ik **bestalde 6**.

Gertatzen dena da informazio asko daukagula gaur egun, aukera gehiago daukagula jakiteko zer gertatzen den munduaren **beste aldean**. Berria - Euskal Herria

Kantoi baten **beste aldean**, jiratu eta ostiaka eta ostikoka azaldu zitzaizkien, aurre-aurrean, tipo haiek. Fernando Morillo

Komuna korridorearen **beste aldean** zegoen eta hara joan nintzen korrika, eta kukubilko jarri nintzen komun-ontziaren aurrean, atearen parean. Joseba Urteaga

"Ba omen da mendilerro bat ekialdean, eta haren alde batean jokabide batzuk inmoralak omen dira, **beste aldean**, berriz, estimazio handikoak. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

alde aldean (12); **aldean aurkitu** (8); **aldean bada** (7); **aldean bai** (9); **aldean beste** (18); **aldean bi** (7); **aldean bizi** (24); **aldean dago** (29); **aldean dagoen** (16); **aldean den** (11); **aldean desberdina** (8); **aldean diren** (9); **aldean duen** (13); **aldean edo** (7); **aldean egin** (9); **aldean egiten** (7); **aldean egon** (9); **aldean eman** (7); **aldean eraman** (13); **aldean eramatea** (7); **aldean eramaten** (14); **aldean eserita** (7); **aldean geratu** (9); **aldean hain** (7); **aldean hasi** (7); **aldean ibili** (10); **aldean ikusi** (7); **aldean ikusten** (7); **aldean izan** (25); **aldean jarri** (14); **aldean jarriko** (7); **aldean oso** (21); **aldean sartu** (9); **aldean sortua** (8); **aldean zegoen** (50); **aldean zer** (7); **aldean zeraman** (17); **aldean zeramatzan** (10); **aldean zeuden** (10); **aldean zituela** (10); **aldean zuen** (7); **amaiera aldean** (11); **andaluzia aldean** (10); **asturias aldean** (11);

atearen beste aldean (14); **atzeko aldean** (103); **aurre aldean** (7); **aurreko aldean** (48); **azpiko aldean** (19); **baiona aldean** (15); **barne aldean** (7); **barneko aldean** (22); **barraren beste aldean** (7); **barruko aldean** (7); **bat aldean** (12); **batek aldean** (7); **baten aldean** (19); **baten beste aldean** (7); **batzuen aldean** (17); **baztan aldean** (13); **bederatziak aldean** (7); **behe aldean** (10); **beheko aldean** (71); **bere aldean** (23); **bertze aldean** (19); **beste aldean** (611); **beste aldean ere** (8); **beste aldean ez** (7); **beste aldean zegoen** (25); **besteen aldean** (17); **beti aldean** (19); **bilbo aldean** (23); **bizkai aldean** (51); **bizkaia aldean** (9); **bizkar aldean** (7); **bordeleko aldean** (8); **bostak aldean** (11); **branka aldean** (12); **bukaera aldean** (15); **bular aldean** (22); **denaren aldean** (11); **dolarraren aldean** (7); **donostia aldean** (12); **eguerdi aldean** (30); **erdi aldean** (13); **erdiak aldean** (7); **errepidearen beste aldean** (11); **erronkari aldean** (7); **eskuin aldean** (64); **eskuineko aldean** (22); **espainia aldean** (16); **europa aldean** (7); **ezker aldean** (59); **ezkerreko aldean** (24); **frantsesaren aldean** (18); **frantzia aldean** (13); **gaineko aldean** (28); **galizia aldean** (8); **garazi aldean** (12); **gasteiz aldean** (12); **gaztela aldean** (19); **gelaren beste aldean** (7); **gerri aldean** (9); **gipuzkoa aldean** (8); **goi aldean** (13); **goierri aldean** (13); **goiko aldean** (76); **gure aldean** (16); **guztien aldean** (21); **haien aldean** (23); **hamarrak aldean** (11); **haren aldean** (45); **haren beste aldean** (7); **hariaren beste aldean** (13); **hego aldean** (15); **hesiaren beste aldean** (15); **hirurak aldean** (8); **honen aldean** (7); **horien aldean** (18); **horren aldean** (29); **ibaiaren beste aldean** (13); **ibaiaz beste aldean** (7); **ipar aldean** (11); **itsas aldean** (10); **kalearen beste aldean** (8); **kanpo aldean** (24); **kanpoko aldean** (30); **karibe aldean** (8); **katalunia aldean** (13); **kontrako aldean** (10); **kosta aldean** (9); **kristalaren beste aldean** (7); **landa aldean** (8); **laurak aldean** (7); **lehengo aldean** (10); **leihoaren beste aldean** (7); **lepo aldean** (7); **madril aldean** (14); **mahaiaren beste aldean** (14); **mediterraneo aldean** (12); **mendi aldean** (12); **nafarro aldean** (11); **nafarroa aldean** (12); **nire aldean** (14); **ofizialtasuna frantsesaren aldean** (12); **parise aldean** (11); **pariseko aldean** (8); **portu aldean** (9); **sabel aldean** (7); **saihets aldean** (8); **seiak aldean** (10); **telefonoaren beste aldean** (10); **uda aldean** (10); **valentzia aldean** (15); **zenaren aldean** (15); **zeraman aldean** (12); **zuen aldean** (9); **zure aldean** (8)

---

aldeanitz *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **aldeaniztun** agertzen da) izond* alde asko dituena.

Ondorioz, gizarteari, instituzioei eta alderdi politikoei elkarrizketa **aldeanitz** bat artikulatzeko proposamena eskaintzen diegu. Berria - Euskal Herria

---

aldeaniztasun *iz* aldeanitza denaren nolakotsuna.

GATTetik Merkataritzaren Mundu Erakundera (MME) Uruguay Rounden bukaera, zortzi urteko negoziazioen ondoren (1994ko apirila), mugarri garrantzitsua izan zen nazioarteko harreman ekonomikoen **aldeaniztasuna** sendotze-bidean. Koro Navarro

---

aldeaniztun *(corpusean ez dago; ETCn **97** agerraldi) iz* alde askotakoa. ik **aldeanitz**; **aldebiko**; **plural 2**.

Ingurugiroa babesteko hitzarmen internazional **aldeaniztunak** aplikatzeko eta betetzeko kontrol-mekanismoak eta hauen bilakaera azken ehun urteetan. ETC-literatura, saiakera

Estatu zibila eta legea, batetik, eta diziplina (patriarkala), bestetik, ez dira bi botere-modu, baizik eta patriarkatu modernoko menderakuntza-egitura konplexu eta **aldeaniztunaren** bi alderdi. ETC-literatura, saiakera

Ezinbestekoa da aldebakarreko begirada, poliki-poliki, partekatua eta **aldeaniztuna** den begiradarekin osatzea. ETC-prentsa

Zinema ez da **aldeaniztun** artista daniar horrek lantzen duen alor bakarra, baina. ETC-prentsa

Akordioak, halaber, krisiaren astinduari aurre egiteko beste 815.000 milioi euro utziko ditu erakunde **aldeaniztunen** eskuetan. ETC-prentsa

Gure iritziz, elkarrizketa horiek **aldeaniztunak** beharko lirateke izan. ETC-prentsa

Gure poeta oiartzuarraren lanaren emaitza sakonagoa da, **aldeaniztunagoa**, baina esku artean dugun album honek ere bere dohainak baditu. ETC-prentsa

Munduko instituzio **aldeaniztun** eta nazioarteko instituzio ugari ere horretaz jabetu dira, eta horrela adierazi dute beren txosten eta informazio-iturrietan sarri. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala ere, esan bezala, Rioko bileran ateratako puntu positiboenetakoa izan zen "jarduketa **aldeaniztunaren** beharra eta egokitasuna berrindartzea, ingurumen-erronka globalei aurre egiteko unean". ETC-zientzia, zuzenbidea

Horien ordez, AEBk muga-zergak murriztea erabaki zuen, baina beste herrialdeek gauza bera egiten bazuten bakarrik (merkataritzaren liberalizazio **aldeaniztuna**). ETC-zientzia, zuzenbidea

Herrialde guztietan nekazaritza-ekoizpenari arreta handiagoa sustatzea eta horretarako ahalegin nazional, aldebiko, **aldeaniztun** eta gobernuz kanpoko ahalegin handiagoa egitea. ETC-entziklopedia

Dena dela, antzerkitik kanpo, idazle **aldeaniztuna** izan zen eta genero zein gai desberdinak landu zituen. ETC-entziklopedia

Bigarren Mundu Gerraz geroztik, hainbat hitzarmen **aldeaniztunek** merkataritza arauketaren egitura global bat sortzen saiatu dira. ETC-entziklopedia

Water Conflict Chronologyk dio estatu barruko arazoek uraren inguruko gatazkak areagotzen dituztela eta nazioarteak horiek ebazteko erabili ohi duen moduak, hitzarmen aldebiko eta **aldeaniztuna** esaterako, ez direla eraginkorrak. ETC-entziklopedia

---

aldeano *iz* herrixka batean jaio edo bizi den pertsona.

Alde batera uzten ditut, kalkulu horretan, gaztetako ikastetxean egin behar izandako ahaleginak ez ziezadaten **aldeanoaren** estigma ezarri; azken batean, ez dago hezteko modu gozorik. Bernardo Atxaga

-Etxaldeetan bizi diren **aldeanoek** dena horrela hitz egiten dute haien artean. Jon Maia

Euskaldun listoetarik listoenen ofizioa, orduan, euskaldunok zein garen tontoak eta lapikoak, kulturgabeko **aldeanoak** eta fanatikoak, predikatzea bilakatu da, botere modu ofizial guztien bozgorailuen arrazoizkotasun indartsuarekin. Joxe Azurmendi

---

aldeantsu *adlag* aldean gutxi borahera.

Artean banintzen eta bizi ere bizi nintzen eta nire barne sentipenak adierazteko keinuak bilatzen nituen haurtzaroaren azken **aldeantsu**. Imanol Unzurrunzaga

---

aldebakar 1 *izond* alde bat baino ez duena.

Bitxia da, ordea, paralogismo transzendentalak itxura **aldebakarra** soilik sortu izana gure pentsatzearen subjektuaren ideiari dagokionez, eta gainera bertan aurkakoaren baieztapenerako itxura txikienik ere ez aurkitzea arrazoimen-adigaietatik abiatuta. Ibon Uribarri

Hizkuntzalaritzak fisiologiarekin dituen erlazioak edo lotuneak ez dira aipatu horiek bezain zailak argitzeko: harremana **aldebakarra** da, zeren, hizkuntzen estudioak hotsen fisiologiari argibideak eskatzen badizkio ere, gero horrek ez baitizkio ematen. Isabel Arrigain

Antitetikak, beraz, ez du jarduten inolaz ere baieztapen **aldebakarrez**, baizik arrazoimen-ezagutza orokorrak hartzen ditu aintzat, baina beraiek elkarrekin duten aurkakotasunari eta beren kausei dagokienez besterik ez.· Pertsona fisiko batek erkidego horrekin modu librean eta **aldebakarrekoan** duen harremanean oinarritzen da, eta erkidegoko kideen arteko harremanak baino ez ditu hartzen bere baitan. Ibon Uribarri

---

aldebakarkeria *(orobat **aldebakarkeri**) iz* arazo edo auzi bat alde bakar batetik ikustea, gaitzesgarritzat markatua.

Ez guztiz positiboki behin juzgatzen du -salbuespenezkoa uste dudan kasu batean, eta oker ez banago bakarrean Ortega-ren obra guztian-, unibertsaltasunaren izpiritutik egungo **aldebakarkeriara** (bereziki alderdikeria marxistara) zubia egiten ei duelako. Joxe Azurmendi

Demokrazia modernoaren alderdi eta **aldebakarkeri** sistemaren genesia trazatzeko modu polemiko franko kazetairea ematen du honek, eta de fakto, uste dut, beste inon ez dela berriro agertzen Ortega-ren izkribuetan, ez Hegel-en interpretazio eta ez Volksgeistaren erreferentzietan, ikusmolde hau, alegia Volksgeistarena partidismo forma bate-na bezala unibertsaltasunaren ukazioz. Joxe Azurmendi

---

aldebakarki *adlag* alde bakar batetik.

Hemen, agerian dago, naturaltasunaren aldean historikotasuna **aldebakarki** azpimarratzen da -horren lehentasuna, arraza historikoentzat, inoiz ez da auzian egon-; naturaltasunak ia deusezera murriztua dirudi ("xxxx") -baina ia bakarrik, eta dirudi bakarrik! bata besteen menpean barnebildua ezin izan daitekeenez gero, beren artean koordinatuak baleude bezala pentsatzen dira, ez menperatuak, eta gainera, ez **aldebakarki** ilara batean baleude bezala, baizik eta elkar determinatzen direla, agregatu batean gertatzen den legez. Joxe Azurmendi

---

aldebakarreko 1 *izlag* alde bakarra duena, alde bakarrari dagokiona.

ETAk Katalunian agindutako su-etena **aldebakarrekoa** izan zen eta ez da itun baten ondorio, ezta elkarrizketa haren ondorio zuzena ere. Berria - Euskal Herria

Badira, halere, sinplistegia eta **aldebakarrekoa** dirudien ikuspegi hori baino askoz ere ekarpen kritiko interesgarriagoak eztabaida horren gainean. Iñaki Heras

Era berean, Israelen behin betiko mugak finkatzeko tenorean **aldebakarreko** erabakiak hartuz gero palestinarren bakearekiko konpromisoa arriskuan jarriko zuela ohartarazi zion Olmerti. Berria - Mundua

Sabeth (edo beste edonor) Venusen Jaiotzaren aldamenean egonik, itzala sortzen baitzen, eta itzal horrek Erinia lokartuaren aurpegia ukitu eta, **aldebakarreko** argi-errainuaren ondorioz, hura erneago, biziago, ia basati, bihurtzen. Joxe Austin Arrieta

Aurkeztu berri duten proposamena **aldebakarrekoa** da eta, gainera, espedienteak ez du errespetatzen joan zen abenduan sinatu genuen malgutasun akordioa. Berria - Ekonomia

2 ***aldebakarreko independentzia aldarrikapen*** *(corpusean ez dago; ETCn **54** agerraldi)*

Aldebakarreko Independentzia Aldarrikapena (AIA) menpeko lurralde batek, estatu berri bat eratzeko asmoz, estatu jabearen oniritzik gabe egiten duen independentzia aldarrikapena da. Terminoa 1965ean erabili zen aurreneko aldiz, Rhodesiak Erresuma Batuarekiko independentzia aldarrikatu zuenean. ETC-entziklopedia

Kosovok **aldebakarreko independentzia aldarrikapena** egin eta egun gutxira eskatu zuten euren independentzia nahiak ere aintzat hartu zitzaten. ETC-prentsa

Errusiak ere ez du onartu Kosovok egindako **aldebakarreko independentzia aldarrikapena**. ETC-prentsa

Baina besterik ez denean, esanda dauka Hagak: **Aldebakarreko Independentzia Aldarrikapenak** ez daude debekatuta nazioarteko legedian. ETC-prentsa

Erakunde propio bat sortu behar dugu, **aldebakarreko independentzia aldarrikapena** egingo duena. ETC-prentsa

Ez da nahi luketen bidea, baina behar bada hori baino ez zaie geldituko: Espainiako erasoaren aurrean, UDIa, **aldebakarreko independentzia aldarrikapena**. ETC-prentsa

Juan Jose Ibarretxek ere aipatu du: "Erabakitzeko eskubidea onartu ezean, **aldebakarreko independentzia aldarrikapenak** izango dira Euskal Herrian eta Katalunian". ETC-prentsa

Halere, XX. eta XXI. mendeko historian ohikoena **aldebakarreko independentzia aldarrikapena** izan da (parlamentu ez demokratikoek ere bai). ETC-prentsa

Uneren batean Kataluniako Legebiltzarrean **aldebakarreko independentzia aldarrikapena** botatzen bada, litekeena da oraingo 72 diputatuen gehiengoa baino zabalago batek ematea sostengua. ETC-prentsa

Horrek bultzatu zuen 155. artikuluaren ezarpena bizkortzera: baita urriaren 27ko **aldebakarreko independentzia aldarrikapenak** ere. ETC-prentsa

---

aldebakartasun *(ETCn **629** agerraldi, horietatik **421** azken sei urteetan) iz* aldebakarra denaren nolakotasuna.

Izan ere, Fernandezen ustez, beharrezkoa da alderdiek herritarren erabakitzeko ahalmena onartzea eta, **aldebakartasuna** alboratuta, hitzarmenen bidetik jotzea. Berria - Euskal Herria

Baina arraza edo herri arimari gagozkiola behinik behin, **aldebakartasun** hauek azentuetan problemarik gabe esplikatzen dira Ortega-ren estiloarekin. Joxe Azurmendi

Zapatero eta Ibarretxe hizketan hasi dira, eta aurrerapausoa izango da, **aldebakartasunari** uko egitera konprometitu baitira. Berria - Euskal Herria

Nazionalistek erabaki eskubidea **aldebakartasunez** ez dela gauzatu behar onartu behar dute. Berria - Euskal Herria

Aldebakartasuneko garaiak izan dira. Berria - Euskal Herria

Pluralismoarekiko konpromisoa zehaztuko duen akordioa, erabakitzeko ahalmenaren erabilera itunaren eta **aldebakartasunik** ezaren printzipioarekin batera dadin. Berria - Euskal Herria

---

aldebanatu, aldabana(tu), aldebanatzen da/du *ad* elkarrengandik bereizi.

Akzidente bereizgarriak gal dezake bere existentzia, ez **aldebanatuz**, bai, ordea, aldakuntzaz. Imanol Unzurrunzaga

---

aldebat 1 *adlg* alde batera.

Erromatar legeak **aldebat** uzten zituen ideia eder horiek guztiak; lege fiskal hutsa zen. Iñaki Iñurrieta

2 *ipar* erabat.

"Édit d'union"-en bitartez, 1620an, Louis XIII.ak Nafarroako erreinua **aldebat** lotzen du Frantziari. Michel Oronoz

Aldiz franses bat zen lehen aldikotz hor gelditu XVII. mendean eta Frantzia harroka haundi hortaz **aldebat** jabetu zen. Herria

Bainan egia da, hainbeste denbora pasatzen nuen etxean, eriz, nun eskolan beti besteen gibeletik ibili behar bainuen, **aldebat** nota txarrak ukanez. Menane Oxandabaratz

Berriki ukana zuten komita Ariel Sharon lehen ministro juduak eginik, itzul zitezen **aldebat** Judu herrirat, Frantzian dagoen antisemitismoari ihes egiteko. Herria

---

aldebateko *izlag* alde bakarra duena, alde bakarrari dagokiona. ik**aldebakarreko**.

Aldebateko neurriak gaitzesteko, protesta ekintzak iragarri dituzte datorren asterako Berria - Ekonomia

Hori dela eta, inoiz baino premia handiagoa du norberaren egitasmo politikoak eta **aldebateko** planak albo batera uztea, Euskal Herriaren eta Estatu espainiar eta frantsesaren arteko gatazka politikoa behin betiko gainditzea ahalbidetuko duen akordio politiko zabalari bidea emateko Berria - Euskal Herria

Hortaz, analisia ezin izan daiteke **aldebatekoa**, zeren bi hizkuntzen berrikuntzek neurri berean baitute garrantzia. Isabel Arrigain

---

aldeberdin 1 *izond* poligonoez mintzatuz, aldeak berdinak dituena.

Hain zuzen, ekilatero esan ordez, **aldeberdina** ere erabiltzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hiruki bat, baina ez **aldeberdina**, baizik eskuin estatalistaren atzeraldiak eta nazionalismoaren goraldiak okertua; ezkerreko nazionalismo berri bat; eta eztabaida politikoa baldintzatzen duen indarkeria terroristaren enkistamendu harrigarria. ETC-zientzia, zuzenbidea

98 Kasu honetan, /ekilatero/ hitzarekin batera / **aldeberdin** / izenondoa ere erabiltzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***hiruki aldeberdin*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Geometrian, ikosidodekaedroa Arkimedesen solidoetako bat da, 32 aurpegi (20 triangelu aldeberdin edo **hiruki aldeberdin** eta 12 pentagono (argipena) pentagono erregular), 60 ertz eta 30 erpin dituena. ETC-entziklopedia

Geometrian, Kuboktaedroa Arkimedesen solidoetako bat da, 14 aurpegi (8 triangelu aldeberdin edo **hiruki aldeberdin** eta 6 karratu), 24 ertz eta 12 erpin dituena. ETC-

entziklopedia

3 *poligono aldeberdin* (corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)

Propietateak: Poligono ganbil ganbila, zirkunferentzia zirkunskribatu ziklikoa, **poligono aldeberdina**, irudi isogonala. ETC-entziklopedia

4 *triangelu aldeberdin*

Teatroen trazek, beraz, desberdintasun hauek dituzte beren artean: karratu bidez diseinatzen direnak grekoen erabileran sartzen dira, eta **triangelu aldeberdinekin** diseinatzen direnak latinoak dira. Santiago Iruretagoiena

---

aldebiko 1 *izlag/izond* bi alde dituena. ik **dual**.

Peter Strawson (1974) eta Thomas Nagel (1986) dira **"aldebiko** teoria" dualistaren (ingelesez, "dual aspect theory" edo "property dualism") defendatzaile nagusiak. Askoren artean

Garrantzitsua da ohartzea Nagelek **aldebiko** dualismoa defendatzeko darabilen argudioa epistemologikoa dela. Askoren artean

Barne ministroaren ustez, uhartearen egoeraren konponbidea **aldebikoa** da: batetik, tradizioak bere horretan mantentzen diren bitartean, garapen ekonomikoa sustatu behar da eta, bestetik, segurtasun ez politikoa dago. Berria - Mundua

2 *aldebiko simetria* (corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)

Organismo zelulaniztun gehienek forma simetrikoa dute, hau da, simetria erradial zein **aldebiko simetria**. Hala ere, gutxiengo batek ez du inolako simetriarik azaltzen (hau da, asimetrikoak dira). ETC-entziklopedia

Aldebiko simetria erakusten du, azal malgua eta muskuluak. ETC-prentsa

---

aldebikotasun (ETCn **484** agerraldi, horietatik **405** azken sei urteetan) *iz* alde bikoa denaren nolakotasuna.

Alabaina, bada, edo izan daiteke, bederen, sentimendu moral bihotz-eragingarri horren manipulazioa, **aldebikotasun** arketipiko horri probetxua ateratzeko. Jon Alonso

Joan Puigcercosek proposamen berriak "ezinbestean" sei baldintza jaso behar dituela esan zuen: autonomia erkidegoen finantzaketa arautzeko sistemaren menpekoa ez izatea; **aldebikotasun** printzipioa errespetatzea; zerga guztien gaineko ahalmena onartzea; defizit fiskal historikoa zuzentzea; inbertsio dezifizita zuzentzea eta tasa guztiak jasotzeko, kudeatzeko, kitatzeko eta ikertzeko ahalmena izatea. Berria - Mundua

Aldebikotasuna: Generalitatearen erabaki lotesleak nahitaezkoak ez izatea nahi du Madrilek. Berria - Mundua

---

aldegin ik **alde 2**.

---

aldegite *iz* alde egitea.

Emaztekia mutur eman ohi zen, aski zakar, **aldegite** haiek nire herbailkeria eta ihesbidetzat baitzeuzkan; eta ez zen tronpatzen, segurik. Jose Angel Irigaray

Nire **aldegite** hurbilak edukiko zuen, seguru asko, zerikusirik. Xabier Montoia

Nahasmen hura, eta gero jendetza hura, auskalo nongoa, eta gero urrun **aldegite** hau, zurekin bakar-bakarrik. Mirentxu Larrañaga

---

aldehido 1 (corpusean ***aldeido*** soilik) *iz* alkoholak kontrolpean oxidatuz lortzen diren gai organikoen mota izena, *-al* atzizkia ezaugarri dutena.

"Rouge" deitzen zion ezpain-margoari, "anillina" anilinari eta "adelaide" **aldeido** benzoikoari. Juan Garzia

2 *aldehido formiko* (corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)

Formaldehidoa H-CHO formula kimikoa duen aldehido alifatikoa da. **Aldehido formiko**, formol eta metanal izenez ere ezaguna da. ETC-entziklopedia

---

aldeido ik **aldehido**.

---

aldekari *izond/iz* fonetikan, albokaria.

Artikulazio **aldekaria**; mihia sabaiaren aurreko aldean ezartzen da, baina ezker-eskubietan irekiera bat utziaz. Isabel Arrigain

Lorturiko irekidura maila **aldekariena** bezalakoa da. Isabel Arrigain

Hala ere, **aldekari** ahoskabea ez da ezinezkoa. Isabel Arrigain

Dardarkari ahoskabeei edo sudurkariei buruz, **aldekariez** esan dena errepika daiteke. Isabel Arrigain

---

aldekide 1 *izond* poligonoez mintzatuz, hiru aldeak berdinak dituena.

Gehienetan isoszele; **aldekide**, gutxi batzuetan. ETC-prentsa

Orduan, horixe da dioena esaten duenean "galdetzen baldin badugu koadratura zer den", hots beste alde luzeagoaren berdina den karratua alegia, definizio hori "angeluzuzena dela" esateari egokitzen zaiola, hau da angelu zuzenen azalera "**aldekidea** dela", hau da alde guztiak berdinak dituena, etab. ETC-literatura, saiakera

2 *hiruki aldekide*

Argi bat piztu zitzaion **hiruki aldekidea** demostratu zuen lehenengoari. Ibon Uribarri

3 *poligono aldekide* (corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)

Artean unibertsitateko ikasle zela, 17 aldeko **poligono aldekidea** egitea lortu zuen, erregela eta konpasa erabiliz. ETC-entziklopedia

Geometrian, poligono aldeberdina edo **poligono aldekidea** alde guztiak berdinak dituena da. ETC-entziklopedia

4 *triangelu aldekide*

Eta bereiz daitezke nolanahiko triangelua, triangelu isoszelea, **triangelu aldekidea** eta triangelu angeluzuzena. Jon Muñoz

Berdin gustatzen zitzaizkidan hirurak, eta beraiekin nengoenean **triangelu aldekide** baten erdian bezala sentitzen nintzen, zein erpinetara jo ez nekiela. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurpegiak triangelu aldekide** (3); **triangelu aldekide** (4)

---

aldeko 1 *iz* aipatzen denaren alde dagoen pertsona.

Laburbilduz, errealismoak **aldekoak** eta aurkakoak baditu. Askoren artean

Umberto Eco erabilera kritikoaren **aldekoa** da. Txema Ramirez de la Piscina

Hegoak ere baditu **aldekoak** eta kontrakoak. Judas eta beronen **aldekoak** geroz eta indartsuago zirela eta ezin ziela aurre egin ikustean, Alkimok errege agana itzuli eta salakuntza maltzurrak egin zizkion haien kontra. Pello Zabala

Isabel II., bestalde, ez zen batere amore ematearen **aldekoa**. Txillardegi

Egitasmo horren **aldekoa** izan zen, besteak beste, Jokin Zaitegi arrasatearra. Koldo Zuazo

Bazter guztietatik inguratuta eta **aldekoak** kontrako bilakatzen egunetik gauera. Aingeru Epaltza

Gehienek literatura euskalkiei eusten jarraitzen zuten arren, hizkuntza eredu bakarraren **aldekoak** ere agertu ziren. Koldo Zuazo

Ohizko baloreen eta familiaren **aldekoa**, beraz. Elena Touyarou

Joera honen kasuan gainera bistakoa da, besteetan gertatu den era bertsuan, bulgarizazio eta sinpiflikazio horretan zeresan handia izan dutela arerioek ez ezik **aldekoek** ere. Iñaki Heras

Hura ikusirik, Mordreten **aldekoak** ihesi abiatu ziren. Juan Kruz Igerabide

Alde batetik, batasunaren aurka jende gehiegi zegoela eta, bestetik, **aldekoen** artean ere ikuspegi desberdin ugari zegoela. Koldo Zuazo

Izan ere, **aldekoen** ikuspegia oso da utopikoa. Iñaki Heras

Nabarmentzekoa da euskara lan tresna zuten jeltzaleak batasunaren **aldekoak** zirela gehienbat, eta ez zituztela inondik inora onartzen Sabino Aranak esandakoak. Koldo Zuazo

2 *izond* onuragarria dena.

Gaur arte argitaraturiko Kode Zibilerako Proiektuak erkatzeko, **aldekoen** zaigun egitasmoa zehaztu, eta jarraian arlo zibileko legeriaren oinarri nagusiak eztabaidatzeko. Andres Urrutia

3 *alde-aldeko*

Hurritzari begira liluratua, etxera joanda, kosta ahala kosta, **alde aldeko** poema batekin gorazarre egin baietz erreguka! Patziku Perurena

Berriz jaiotzea **alde aldeko** abantaila izango litzateke berarentzat. Antton Olano

4 *alderik aldeko balkoi* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Baigorrin eta Aldudeko Haranean bigarren solairuan aurrealdeko fatxada osotik doazen **alderik aldeko balkoiak** edo galeriak mirets ditzakegu. ETC-entziklopedia

5 *bi aldeko*

Diez: ETAk garrantzi erlatiboa eman zion aldagaien ordenari, konpromisoak **bi aldekoak** zirelako, eta bermeak ere bazeudelako, Aljeriako Gobernuarekin. Berria - Harian

ETAk eta Espainiako Gobernuak **bi aldeko** su-etena hitzartu berri zuten, eta Aljerren bilerak egiten ari ziren. Berria - Euskal Herria

Kontzertua **bi aldeko** ituna baldin bada, eurek ere konpromisoak hartu behar dituzte. Berria - Ekonomia

Auzi honen inguruan sortutako tirabirak direla-eta Europako Batzordeak berriz idatziko du diru laguntzen inguruko testua **bi aldeko** iritziak kontuan hartuta. Berria - Kultura

Japoniar ekonomiaren desoreken ondorio orokorrak azpimarratuz, asiar krisiak, nolanahi ere, geldiarazi egin zuen **bi aldeko** harremanaren goraldi hori. Koro Navarro

Gero, komeni da erabiltzea, Alemanian legez, zilarrezko ontzi bat, **bi aldekoa**, erdian iragazkia duela. Javi Cillero

Hortaz, ikur linguistikoa **bi aldeko** entitate psikikoa da, eta irudi honen bidez irudika daiteke. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 10 aldiz agertzen direnak)

aberriaren aldeko (18); **adierazpen askatasunaren aldeko** (18); **aitaren aldeko** (15); **akordioaren aldeko** (13); **aldeko adierazpen** (11); **aldeko adierazpenak** (10); **aldeko agertu** (30); **aldeko agertu zen** (18); **aldeko agiria** (10); **aldeko ahotsak** (10); **aldeko aldarria** (54); **aldeko aldarria egin** (15); **aldeko aldarrikapena** (26); **aldeko aldarrikapenak** (11); **aldeko apostua** (28); **aldeko apostua egin** (15); **aldeko apustu** (66); **aldeko apustu garbia** (20); **aldeko apustua** (415); **aldeko apustua berretsi** (12); **aldeko apustua egin** (181); **aldeko apustua egingo** (22); **aldeko apustua egitea** (19); **aldeko apustua egiteko** (19); **aldeko apustua egiten** (58); **aldeko apustuak** (10); **aldeko apustuari** (10); **aldeko argudio** (10); **aldeko argudioak** (11); **aldeko arrazoiak** (12); **aldeko aukera** (25); **aldeko barkamen** (19); **aldeko barkamen ohikunea** (16); **aldeko batasuna** (13); **aldeko bere** (14); **aldeko besta** (13); **aldeko beste** (32); **aldeko bi** (20); **aldeko borroka** (73); **aldeko borrokak** (23); **aldeko borrokan** (65); **aldeko borrokaren** (17); **aldeko borrokari** (11); **aldeko boto** (19); **aldeko botoa** (163); **aldeko botoa eman** (55); **aldeko botoa emango** (10); **aldeko botoa eskatu** (18); **aldeko botoak** (16); **aldeko botoekin** (32); **aldeko boza** (65); **aldeko boza eman** (22); **aldeko bozak** (10); **aldeko defentsa** (16); **aldeko deia** (27); **aldeko dinamika** (16); **aldeko diru** (18); **aldeko diskurtsoa** (13); **aldeko ebazpena** (14); **aldeko edo** (12); **aldeko eguna** (14); **aldeko ekimen** (13); **aldeko ekimena** (23); **aldeko ekimenak** (27); **aldeko ekintza** (15); **aldeko ekintzaile** (14); **aldeko ekintzaileak** (10); **aldeko ekitaldi** (10); **aldeko ekitaldia** (28); **aldeko elkarretaratzea** (21); **aldeko elkartasun** (16); **aldeko elkarte** (14); **aldeko elkartea** (12); **aldeko elkarteak** (26); **aldeko elkarteek** (13); **aldeko elkarteko** (14); **aldeko epaia** (15); **aldeko erabakia** (26); **aldeko erabakia hartu** (10); **aldeko eragile** (10); **aldeko erakunde** (11); **aldeko erakundeak** (53); **aldeko erakundearen** (18); **aldeko erakundearen arabera** (12); **aldeko erakundeek** (52); **aldeko erakundeen** (22); **aldeko erakundeen arabera** (12); **aldeko erakundeko** (12); **aldeko eta** (90); **aldeko eta aurkako** (10); **aldeko eta kontrako** (27); **aldeko ezkia** (21); **aldeko giroa** (11); **aldeko gizarte** (13); **aldeko hainbat** (33); **aldeko haizea** (14); **aldeko hautetsien** (14); **aldeko hautua** (73); **aldeko hautua egin** (38); **aldeko hautua egiten** (10); **aldeko herri** (34); **aldeko hileta** (37); **aldeko hileta elizkizunak** (16); **aldeko hitzak** (14); **aldeko indar** (22); **aldeko indarrak** (32); **aldeko indarrek** (15); **aldeko indarren** (14); **aldeko iritzi** (19); **aldeko iritzia** (21); **aldeko iritziak** (11); **aldeko ituna** (12); **aldeko izan** (19); **aldeko jarrera** (150); **aldeko jarrera agertu** (11); **aldeko jarrera hartu** (11); **aldeko jarrerak** (12); **aldeko joera** (21); **aldeko kanpaina** (118); **aldeko kanpaina egin** (15); **aldeko kanpainak** (14); **aldeko konpromiso** (17); **aldeko konpromisoa** (43); **aldeko konpromisoak** (16); **aldeko koordinakundeak** (24); **aldeko lana** (44); **aldeko lanean** (19); **aldeko leloak** (17); **aldeko manifestazio** (22); **aldeko manifestazioa** (29); **aldeko manifestazioan** (14); **aldeko manifestua** (21); **aldeko martxa** (14); **aldeko mezua** (34); **aldeko mozioa** (15); **aldeko mugimendu** (20); **aldeko mugimendua** (45); **aldeko mugimenduak** (76); **aldeko mugimenduaren** (21); **aldeko mugimenduko** (30); **aldeko nazioarteko** (58); **aldeko nazioarteko erakundeak** (15); **aldeko neurriak** (31); **aldeko oihuak** (39); **aldeko pausoak** (10); **aldeko plataforma** (13); **aldeko plataformak** (20); **aldeko politika** (24); **aldeko politikak** (10); **aldeko propaganda** (15); **aldeko sinadura** (10); **aldeko sinadurak** (11); **aldeko sustengu** (15); **aldeko talde** (22); **aldeko taldeak** (21); **aldeko taldeek** (39); **aldeko taldeen** (17); **aldeko txetxeniako** (13); **aldeko urrats** (13); **aldeko urratsak** (23); **aldeko zein** (14); **aldeko zenbait** (13)

amaren aldeko (21); **amnistiaren aldeko** (153); **amnistiaren aldeko mugimenduak** (59); **amnistiaren aldeko mugimenduko** (20); **animalien aldeko** (22); **asia aldeko** (12); **askatasunaren aldeko** (93); **askatasunen aldeko** (14); **aurreko aldeko** (10); **autodeterminazio eskubidearen aldeko** (24); **autodeterminazioaren aldeko** (127); **autodeterminazioaren aldeko botoa** (10); **autodeterminazioaren aldeko indarrak** (13); **baiezkoaren aldeko** (33); **baiezkoaren aldeko kanpaina** (10); **baigorri aldeko** (17); **bakearen aldeko** (159); **bakearen aldeko koordinakundeak** (24); **batasunaren aldeko** (32); **baten aldeko** (151); **baten aldeko apustua** (32); **berdintasunaren aldeko** (43); **bere aldeko** (66); **berri baten aldeko** (14); **berriaren aldeko** (17); **beste aldeko** (143); **bi aldeko** (22); **biktimen aldeko** (21); **bilbo aldeko** (11); **bizitzaren aldeko** (10); **bizkai aldeko** (10); **burujabetzaren aldeko** (24); **d ereduaren aldeko** (15); **demokratikoaren aldeko** (17); **demokratikoen aldeko** (17); **demokraziaren aldeko** (43); **departamenduaren aldeko** (67); **departamenduaren aldeko hautetsien** (12); **dute euskararen aldeko** (11); **egitearen aldeko** (17); **egunkaria ren aldeko** (12); **elkarrizketaren aldeko** (58); **elkarrizketaren aldeko apustua** (13); **emakumeen aldeko** (11); **emakumeen eskubideen aldeko** (15); **en aldeko** (24); **enpleguaren aldeko** (12); **erdi aldeko** (10); **ere aldeko** (11); **ereduaren aldeko** (20); **erreferendumaren aldeko** (12); **errepublikaren aldeko** (17); **errusiaren aldeko** (12); **eskubide zibilen aldeko** (13); **eskubidearen aldeko** (55); **eskubideen aldeko** (518); **eskubideen aldeko borrokan** (13); **eskubideen aldeko ekintzaile** (10); **eskubideen aldeko erakundeak** (43); **eskubideen aldeko erakundearen** (15); **eskubideen aldeko erakundeek** (38); **eskubideen aldeko erakundeen** (17); **eskubideen aldeko hainbat** (12); **eskubideen aldeko nazioarteko** (33); **eskubideen aldeko taldeek** (25); **eskuin aldeko** (17); **estatutuaren aldeko** (28); **eta aldeko** (29); **eta amnistiaren aldeko** (16); **eta askatasunaren aldeko** (10); **eta bakearen aldeko** (24); **eta berdintasunaren aldeko** (12); **eta bere aldeko** (10); **eta demokraziaren aldeko** (11); **eta euskararen aldeko** (17); **eta haren aldeko** (13); **eta politikoen aldeko** (23); **etaren aldeko** (12); **etorkinen aldeko** (15); **euren aldeko** (13); **europaren aldeko** (11); **euskal departamenduaren aldeko** (43); **euskal herriaren aldeko** (15); **euskal herriratzearen aldeko** (11); **euskal kulturaren aldeko** (24); **euskal presoen aldeko** (42); **euskal selekzioaren aldeko** (19); **euskararen aldeko** (239); **euskararen aldeko borrokan** (10); **euskararen aldeko jarrera** (13); **euskararen aldeko neurriak** (10); **ezaren aldeko** (16); **ezetzaren aldeko** (12); **ezezkoaren aldeko** (46); **ezezkoaren aldeko kanpaina** (10); **ezker aldeko** (30); **garazi aldeko** (11)

gazteen aldeko (15); **gaztetxearen aldeko** (16); **gaztetxeen aldeko** (10); **giza eskubideen aldeko** (351); **gobernuaren aldeko** (47); **goiko aldeko** (12); **gure aldeko** (17); **guztien aldeko** (19); **haien aldeko** (14); **haren aldeko** (64); **haren aldeko hileta** (10); **harrobiaren aldeko** (21); **harrobiaren aldeko apustua** (13); **hartzearen aldeko** (15); **hazparne aldeko** (48); **hazparne aldeko ezkia** (21); **hego aldeko** (28); **herriaren aldeko** (30); **herriaren askatasunaren aldeko** (15); **herriratzearen aldeko** (11); **hizkuntza eskubideen aldeko** (10); **hizkuntzaren aldeko** (27); **honen aldeko** (13); **horien aldeko** (17); **horren aldeko** (86); **horren aldeko apustua** (10); **hzren aldeko** (28); **ikastolen aldeko** (20); **independentziaren aldeko** (76); **indigenen aldeko** (14); **ingurumenaren aldeko** (44); **inoren aldeko** (11); **ipar aldeko** (19); **itunaren aldeko** (14); **izatearen aldeko** (12); **jainkoaren aldeko** (12); **justiziaren aldeko** (11); **koalizioaren aldeko** (13); **konponbide demokratikoaren aldeko** (12); **konponbidearen aldeko** (38); **konstituzioaren aldeko** (21); **kulturaren aldeko** (40); **langileen aldeko** (14); **lurraren aldeko** (10); **mediterraneo aldeko** (10); **mendi aldeko** (13); **moskuren aldeko** (41); **moskuren aldeko txetxeniako** (10); **navalen aldeko** (17); **nazionalaren aldeko** (10); **nire aldeko** (24); **normalizazioaren aldeko** (19); **okupazioaren aldeko** (15); **parise aldeko** (11); **parte hartzearen aldeko** (12); **planaren aldeko** (10); **politikoaren aldeko** (12); **politikoen aldeko** (48); **presidentearen aldeko** (16); **preso politikoen aldeko** (12); **presoen aldeko** (138); **presoen eskubideen aldeko** (25); **proposamenaren aldeko** (10); **prozesuaren aldeko** (15); **publikoaren aldeko** (12); **ren aldeko** (29); **sahararen aldeko** (10); **selekzioaren aldeko** (24); **sozialaren aldeko** (18); **subiranotasunaren aldeko** (15); **unibertsitatearen aldeko** (13); **zerrendaren aldeko** (10); **zibilen aldeko** (20); **zuen aldeko** (12)

aldekoa da (143); **aldekoa dela** (53); **aldekoa den** (11); **aldekoa eta** (26); **aldekoa ez** (12); **aldekoa izan** (44); **aldekoa izan zen** (11); **aldekoa izango** (15); **aldekoa naiz** (24); **aldekoa zara** (10); **aldekoa zela** (18); **aldekoa zen** (58); **aldekoak dira** (103); **aldekoak direla** (12); **aldekoak ere** (13); **aldekoak eta** (40); **aldekoak eta kontrakoak** (21); **aldekoak ez** (18); **aldekoak gara** (18); **aldekoak izan** (38); **aldekoak ziren** (21); **aldekoen artean** (20); **aldekoen eta** (19); **bere aldekoak** (12); **egitearen aldekoa** (19); **haren aldekoek** (10); **horren aldekoa** (18); **independentziaren aldekoak** (16)

aldekotasun *iz* zerbaiten edo norbaiten aldeko jarrera. ik **sostengu**.

Gose horren putzaz oharkabean oharturik, **aldekotasun** ideal eta atxikimendu platonikotik bizi da berez. Iñaki Segurola

Nazio auzia jendearen **aldekotasuna** lortuz irabaziko dugu. Berria - Euskal Herria

Euskalgintzak askotan ez du asmatu, ez da konturatu, euskalgintzatik bertatik beste plano batean lan egin zitekeela, eta, besteak beste, nazionalista ez den jende askoren **aldekotasuna** lor zezakeela paradigma ekologiko batekin. Berria - Euskal Herria

Ezkontzaren **aldekotasuna**, ohitura onen sustapena, gizartearen nahia, orok nahi dute seme-alaba naturalak legezkoekin pareka ez daitezen. Andres Urrutia

---

aldemen ik **aldamen**.

---

aldenarazi, aldenaraz(i), aldenarazten du *ad* aldentzera, urruntzera behartu.

Atean ez duela nahi argi adierazi dion arren, Carlosek ezin du neska **aldenarazi**. Edorta Jimenez

Bazen kapitulu hartan anaia bat Jaunari otoitzean eskatu ohi ziona ez ziezaiotela Lombardiako heretikoek fedea hondatu, ezta alemanen ankerkeriak fedetik **aldenarazi** ere. Askoren artean

Bat-batean, ordea, neskak besoak zurrundu eta berarengandik **aldenarazi** zuen mutila. Mirentxu Larrañaga

Inor ez daiteke beste norbaitez erabat jabetu eta lagun bat gainerako guztiengandik **aldenarazi**, bihotzean harra sentitu gabe. Xabier Olarra

Herbert bere pailazokeriatik **aldenarazterik** ez: trafikozainaren plantak egiten hasi da. Joxe Austin Arrieta

Jokabide txarretik **aldenaraziko** zaituzte eta hitz maltzurrekoengandik. Elizen arteko biblia

-Technology... -esan zuen orduan, eta ez, emakumeei entzuten ohitua nagoen bezala, ezjakintasun soilarengatik, burla modura baizik: horrek ez ninduen **aldenarazi**, dena den, tresnaskaren desmuntaketa-lanetik; jakin nahi nuen zergatik ez zebilen. Joxe Austin Arrieta

---

aldendu, alden(du), aldentzen **1** da *ad* urrundu, bereizi.

Alden zaitezte talde horretatik, oraintxe bertan suntsitu behar baititu. Jose Antonio Mujika

Hala, bada, arima beldurrez beteta, garrantzirik handiena hartu behar dion une hartara hurbilduta, ez da lortzen erlijiotik **alden** dadin. Iñaki Iñurrieta

Abadesa gogoeta egitera **aldendu** zen pixka batean. Juan Kruz Igerabide

Norengandik **aldendu** zen Jesus? Joan Mari Lekuona

Ez du asko hitz egiten, baina ohiko mezutik **aldentzen** den jokalari bakarrenetakoa da. Pablo Sastre

Ez nago lur jota soilik harengandik **aldentzeagatik**; nire bakardadea berriz aurkitzeko izu ikaragarria dut. Monika Etxebarria

Leihotik **aldendu** eta telebista piztu nuen, arreta pantailan jarri eta nire pentsamenduen gurpila gelditzeko. Bernardo Atxaga

Abel ikustean mugitu da, eskuin, pagadian sartu eta gailurretik **aldentzen** den bidexidor garbitik. Pello Lizarralde

Horregatixe saiatu naiz **aldentzen**, umorea eta nire aldarte ona lagun, denbora osoan goibel eta amorratuta egotetik. Xabier Montoia

Bere kabuz **aldendu** zen. Ramon Saizarbitoria

Sarjentua **aldendu** arte itxaron dut, entzun ez nazan. Mirentxu Larrañaga

Zaudete erne, horretatik inoiz inola **alden** ez zaitezten inoren irakaspenez edo kontseiluz. Askoren artean

Ez **aldendu** emazte zentzuzko eta onarengandik, urrea baino dohain baliotsuagoa baita. Elizen arteko biblia

-A! -oihu egin eta **aldendu** egin zen. Ibon Uribarri

Ideia hauek erakarrita **aldendu** zen Agustin kristau printzipioetatik. Imanol Unzurrunzaga

Frantzisko ez zen mundutik **aldendu** Jainkoarekin topo egiteko: gizartearen baitan, hirien erdian (edo periferian), jendea mugitzen zen bideetan, gizarteko behartsuenen konpainian bizi nahi izan zuen. Askoren artean

Baztertu egin gaituzu, oi Jainko, eta hautsi, haserreturik, **aldendu** egin zara guregandik. Elizen arteko biblia

Damutu zait Saul errege egina, **aldendu** egin baita niregandik eta ez ditu bete nire esanak. Elizen arteko biblia

Zenbat eta **aldenduagoak** mundutik, orduan eta elkartuagoak zeuden Jainkoarekin. Askoren artean

Herritik urrunduta, mundutik **aldenduta**, txakurra zuen lagun bakarra. Imanol Zurutuza

2 (forma ez burutuak)

Hildakoak ez dira gure oroitzapenetatik erabat **aldentzen**. Joxan Elosegi

Agurea atera zenean, bizargina leihora hurbildu zen, nola **aldentzen** zen ikustera. Koro Navarro

Ez ziren haiengandik **aldentzen**, ez laino-adarra egunez, ez eta su-adarra gauez. Jose Antonio Mujika

Zuzien argi salataria **aldentzen** hasi zen. Agustin Otsoa

Pixkanaka, euren bideak **aldentzen** joan ziren, bide nagusitik okertzen diren bidexkak bezala. Aritz Gorrotxategi

Argia amatatu dut, hori guztia, hau guztia ahanzten saiatu naiz, eta gogoeten iltzeek min gutxiago egiten dute, ur azpian sartu eta **aldentzen** zarenean bezala, hondarrarekin topo egin aurretik desagertzen den haurren zarata bezala. Lander Garro

Prozedura hori asko **aldentzen** da izadiak darabiltzan metodoetatik. Irene Aldasoro

Nolanahi ere, diskoa ez da **aldentzen** Muguruzak bere ibilbidean landu duen kontzeptutik: "Espiritua hor dago". Berria - Kultura

Orduan iristen dira erabat gizaki maitagarriak izatera, eta **aldentzen** dira eta urruntzen gauza guztietatik, naturak hauei eranstea nahi duenean eta erants litekeenean. Joan Mari Lekuona

Baliabide poetikoak, bestalde, ez dira mintzabide ustez normaletatik urrunago edo hurbilago **aldentzen** diren mintzabideak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eragile sentigarriak diot, zeren esperientziak erakusten baitu jendeak ez dituela portaera-arau egonkorrak hartzen, ez dela hondamen-lege unibertsaletik **aldentzen**, unibertso fisiko eta moralean ikusten denez. Juan Martin Elexpuru

Gizabanakoaren tranpatik **aldentzen** ahalegintzen naiz behin eta berriro. Joseba Urteaga

Baietz uste izan nuen aurrena, nahikoa zitzaidala nigandik **aldentzea** gorilaren begiradaz ahazteko. Bernardo Atxaga

Iruñetik **aldentzeak** on egin digula uste dut. Berria - Kirola

Ez dugu alderdi baten alde edo erlijio baten alde jotzen jakintza-kontu hutsengatik, eta, haietatik **aldentzean** ere, arrazoiei begiratu gabe egin beharko genuke. Juan Kruz Igerabide

Elkarrengandik **aldentzera** gindoazela pentsatzea ez zirudien ezer askorik axola zitzaionik. Joxe Austin Arrieta

Lehengaien eskariaren (eta, hortaz, prezio erlatiboen) bilakaera kaltegarriak, epe luzera, espezializazio mota horretatik **aldentzera** eraman zuen, zein bere neurrian, herri ekoizle asko. Koro Navarro

Istorioak kontatzeko eta, zergatik uka, inguruko nortasun kolektibo maiz itogarritik **aldentzeko** eta askatzeko zen ariketa, exhibizio keinu errepikatua bilakatu da. Jose Angel Irigaray

"Indarkeriatik **aldentzeko** jarrera" erakusteko eskatu diote Batasunari. Berria - Harian

3 du *ad* urrundu, uxatu.

Poliziak airera tiro egin behar izan zuen jendea **aldentzeko**. Berria - Mundua

Bizimodu hori gugandik arrazoi txit egiazkoak **alden** dezan. Xabier Amuriza

Barkatu oraingo honetan ere nire bekatua eta egiozue erregu zeuen Jainko Jaunari, heriotza-zigor hau **alden** diezadan. Elizen arteko biblia

Ez gaitzala, bada, ezerk eragotz, ezerk **alden**, ezerk oztopa. Askoren artean

Aldendu zeuregandik mihi gaiztoa, urrundu ezpain gaizki-esaleak. Elizen arteko biblia

Nork **aldenduko** gaitu Kristok digun maitasunetik? Elizen arteko biblia

Une batez besoa **aldentzea** bururatu zitzaidan, baina bertan utzi nuen: esku haren epela behar nuen-. Alberto Ladron Arana

Amaiak begirada sutatik **aldentzean**, Pilar izan zen suari begira jarri zena. Aitor Arana

Harri honi hazi asko erion behar zaio, edo hazi korronte bat, harri-burdinen artean dagoen airea jo eta **aldenduko** duena. Xabier Amuriza

Nahiz eta katalogoak, kontseilariaren aurkezpenak, komisarioaren aipuak, denek, azpimarratzen duten emakumea dela, bere mundutik egiten duela egiten duena, berak berehala **aldentzen** ditu, ostiko batez, interpretazioak. Berria - Kultura

Ohitura atsegina, errealitatetik **aldentzen** zuena. Antton Olano

Nik, dena den, nahiz eta diesel-motorrak interesatu, neskarengandik ere begirik **aldentzen** ez: adi-adi ari zaio baptistari entzuten. Joxe Austin Arrieta

-Orduan zer egin huen hura **aldentzeko**? Juan Garzia

Arma tolesgabeak ahotsa murmurio bihurtzea eta aurpegira erortzen zaion adats horail leuna **aldentzeko** keinu nagi antzekoa, baina zerbaitengatik eraginkorrak gertatzen direnak. Ramon Saizarbitoria

Noizbehinka schnaps nazkagarri hartatik tragokada bat edanez, barrunbeak jaten zizkion izu gorria **aldentzeko**. Alberto Ladron Arana

Betorkit Jaunaren zigorra -zigor bat eta bestea-, / heriotzak ez bestek zugandik **aldentzen** banau! Jose Antonio Mujika

Hura dela elkarrengandik **aldentzen** gaituen behaztopa. Jon Muñoz

EAJtik **aldentzen** gaituena da euskal herritarren arteko, eta euskal herritarren eta Espainiaren arteko harremanak zehazteko eredu arras diferentea dugula. Berria - Euskal Herria

Batasunarekin akordiorik egiteko aukerarik ez genuen bortizkeriak **aldentzen** gintuelako. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldendu behar (15); **aldendu da** (16); **aldendu egin** (71); **aldendu egin zen** (24); **aldendu egiten** (12); **aldendu eta** (86); **aldendu gabe** (35); **aldendu nahi** (14); **aldendu zen** (65); **aldendu ziren** (22); **aldendu zuen** (19); **aldentzen ari** (11); **aldentzen da** (16); **aldentzen den** (11); **aldentzen ez** (12); **bat aldendu** (13); **ere aldendu** (11); **eta aldendu** (19); **eta aldendu egin** (13); **eta aldentzen** (11)

---

aldenduxe *adlag* aldendu samar.

Herritik **aldenduxe**, bereix den etxe arrunt batean bizi da. Jose Angel Irigaray

---

aldenketa *iz* aldentzea, urruntzea.

Aldenketa honek, dena den, badu bere ordaina balioan, eta zenbait herri hizkeretan. Isabel Arrigain

---

aldeño *iz ipar adkor* kopurutxoa.

Muntatua duen RPF alderdiarentzat ukanik diru-**aldeño** bat untsalaz altxatu behar etzuena eta besteño bat ez omen dena hain iturri garbitik ateratua. Herria

Ez idurika orduko sos-**aldeño** pollita omen zen hori bainan ziburutarrek biziki gogotik pagatu zutena! Herria

Biharamunean, berriz Garatenean, jende **aldeño** bat eta arras gustatu dena bi oren osoz partida hunekin. Herria

Denaden, bazuen bere bixi gostua zenbait aldiz HERRIAk, bereziki Lafitten lehen urte **aldeño** batez. Herria

---

aldentze **1** *iz* urruntzea, bereiztea.

Indoeuropar hizkuntzen historiak adibide asko agertzen dizkigu, non herriak beste lurralde batera joan zirenez, herri horien hizkuntzak banandu baitziren hizkuntza familiatik; **aldentze** horrek ondorio bereziak ekarri bide zituen hizkuntza horien bilakaeran. Isabel Arrigain

Ezuste hura ez zen izango hainbestekoa, hobeto ulertuko nuen, baldin eta aldez aurretik Idoiari halako **aldentze** bat-edo nabaritu izan banio, ni ez onartze bat, edo txortan egiteko gogorik eza, edo nik ahal dakit zer. Juan Kruz Igerabide

Vitruvio ez da "errezetalari" bat, baizik eta testuinguru literario-kultural jakin batean txertatzen da koherenteki, komunikazio-modu oso zehatzak erabiliz, eta inolako **aldentze** akademikorik azaldu gabe, bere obrarekiko inplikazio pertsonal erabatekoa baizik. Lana zerbait arrunt eta morroi-neskameei zegokien gauzatzat hartzeko ikuspegi helenikotik **aldentze** iraultzaile hau ez zen ezarriko San Benediktoren Erregelak ez balu santifikatu izan. Santiago Iruretagoiena

56 gizonezko atxilotu dituzte hilabeteotan beren bikotekideei eraso egiteagatik edo jarri zitzaien **aldentze** agindua hausteagatik. Berria - Euskal Herria

Herria pertsonaien patuari estu-estu atxikirik doa, bai pertsonek bai lurraldeak muga eta **aldentze** arazoak jasan behar dituzte eta. Berria - Kultura

2 *aldentze agindu*

Eskualde bi horietan, gainera, 56 gizonezko atxilotu dituzte hilabeteotan beren bikotekideei eraso egiteagatik edo jarri zitzaien **aldentze agindua** hausteagatik. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta aldentze (3)

---

aldentzearren *adlag* aldentzeko, urruntzeko.

Gordeleku bat eraikiko zuen beharbada bere buruaren barruan, egoeraren ezinetik nolabait **aldentzearren**, errealitate izugarriaren araberako presondegitik ihes egiteko. Joxan Elosegi

---

aldera **1** *adlag* ondora, aldamenera.

Noizetik noizera, xinpart batek besteak baino biziago urrez erraustatzen zituen haren ile-xorta barneko ilun-nabarrean gorrizka agiri zirenak, eta noizetik noizera, gar luzeago batek haren aztal eztia mihazkatuz, **aldera** inguratzen zen hats-behera ito batekin. Anjel Lertxundi

· 2 *postpos* denboraz mintzatuz, inguruan.

Horren ondorioa da institututik unibertsitatera igarotzeko bidea askoz ere modu eztiagoan egiten dela, eta ikasleak badakiela, aukera badu behintzat jakiteko, hilabeteak lehenago, normalean urtarril **aldera**, non hasiko den ikasten ondoko irailean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Siesta egiten du, eta hori errespetatuz, arratsaldeko bostak **aldera** iritsi naiz haren baserrira, Elgoibarko San Lorentzo auzoan dagoen Agarre baserrira. Pako Aristi

Eguerdi **aldera**, alkatea eta idazkaria hamaiketakoa hartzen ikusi zituen betiko tabernan, eta Floreni tripak irauli zitzaizkion berriro. Eider Rodriguez

-Ez, gaur da itzultzekoa, arratsalde **aldera** edo. Jasone Osoro

Hurrengo gauean bertan, hirurak **aldera**, askatu zuten Martutenen Txillardegiren seme Joseba Alvarez, bi urtez preso zanpatu ostean. Markos Zapiain

3 *postpos* -gana; -rantz.

Eta akitzen delarik, ordian bakartasun batean ere, zeren-eta nik natura biziki maite dut eta orduan sobera akitia nizalarik, edo sobera buruko min dutanean ordian joaten niz mendi **aldera** edo itsas bazterrerat edo, bakartasun batean berriz reekilibratzeko. Menane Oxandabaratz

Estazio **aldera** joatea erabaki zuen orduan, paseoan. Unai Elorriaga

Masiboa: fededun zein fedegabe, gizakiak geroz eta eliza **aldera** hurreratzeko joera handiagoa du, ondoren jatetxera bisita bat eginez. Edorta Agirre

Noiz nahi, Urrobi ibaia, lehenik autoaren mugimendua nagiki segiturik eskuin aldean, eskapatzen zitzaidan, bihurgune batean bere izena erranez, ezker **aldera** zihoala, gero eskuin. Piarres Aintziart

Adivasiek basoetara eta mendi **aldera** alde egin behar izan zuten. Gotzon Garate

Eskumako erpurua soinu hegalaren azpiko **aldera** sartzen eban, beroneri tenazan helduaz. Xabier Amuriza

Arrokaren barnerantz aterpetu ziren, handik Itzalarriko Erreka **aldera** hartuko zuten igeri, zihoazela neure begi bistatik. Koldo Izagirre

Zakurñoa berekasa abiatu zen usmenak eta gogoak pusaturik zakurremearen **aldera**; xuxen, azkar. Jose Angel Irigaray

4 *postpos* -en alde.

Nik neronek -eta lotsa gramorik gabe derraket halaxe-, goizero itxura hoberenaren **aldera** jokatzen dut asmatzeko aldioroko trabesean. Pello Zabala

Telemakoz ere kezkatuta nagok; aitaren **aldera** atera duk, gorputzez eta itxuraz; alabaina, jainkoren batek burua nahastu ziok, Pilosera joan baita aitaren berri bila. Juan Kruz Igerabide

5 *postpos* -ekiko, -entzat.

Nazioen eskubideak gogorarazi ondoan, nazio bakoitzak beste nazioen eta gizadi osoaren **aldera** dituen eginbideak ere aipatzen zituen gero aita saindu poloniarrak. Piarres Xarriton

Erien **aldera** ere errespetu guti erakusten da. Marzel Etxehandi

6 *postpos* -en truke edo ordainez.

Horren **aldera**, gure erregeak zian pareko ordain-bahia ezarria, zeina Fortinbrasen ondarera bihurtu baitzatekeen, hura garaile irten balitz; hots, aipaturiko itunaren arauz, norvegiarrarena gure Hamleti egokitu zitzaion bezala. Juan Garzia

Abokatuen jokabideari buruzko ikuspegi honek ez du gaur arte haien onarpena bereganatu, inork ez baitie lansaririk eskaini ikuspegi hori onartzearen **aldera**. Xabier Olarra

Pentsatu zuen plazeraren **aldera** pagatu behar izaten dela, eta plazera hartu zuela, galanki hartu ere, eta hortaz pagatu behar. Matías Mujika

Hamabost egun egin zituen Elgetak Sakabian, Faustinori erakusten, "mantenua, bi duro eta eguneko bi pururen **aldera"**. Iñigo Aranbarri

7 *postpos* -tzeko asmoarekin, -arren.

Ez zen zaila haria nondik nora zihoan konturatzea, egia esate **aldera**. Harkaitz Cano

Eskubide hori bermatze **aldera**, Hezkuntza sailburuak auzian zeresana duten eragileak biltzeko konpromisoa hartu zuen atzo, guztien artean euskal presoek EHUn ikasteko dituzten trabei irtenbideak bilatzeko. Berria - Euskal Herria

Berau areagotze **aldera**, beti du datxekion eta komeni zaion irudia eragiten eta behin eta berriz sortarazten, beraz, egokituriko ihakinak Jose Angel Irigaray

Parlamentuaren eta Erregearen arteko gatazkak areago zihoazen eta, Hobbesek, bere burua babeste **aldera**, Elementuak izenekoa argitaratu zuen, 1640an, azken bi liburuak soilik zirriborratu bazituen ere. Esteban Antxustegi

Unibertsitatean eta komunikabideetan emakumeek egindako lanari beste begi batzuekin begiratzen hasi behar zaiola, bere horretan balioa emanez, eta ez, soilik, kupoak betetze **aldera**. Ana Urkiza

Hala, behar den lasaitasun giroa sortuko da, beraien ustez, zabaltasun politikoa sortzen laguntzeko euskal gatazka konpontze **aldera**. Berria - Euskal Herria

8 *postpos* zerbait interes berezirik gabe egin dela adierazteko.

Eta ez zuen esate **aldera** esaten, izan ere lanbidea inork ez bezala ezagutzen baitzuen eta bete-betean jarduten baitzuen bere erantzukizunaren mailan. Patxi Zubizarreta

-Zuk, andrea -esan zion-, edo ez dituzu nire hitzak ulertu nahi, edo zerbait esate **aldera** soilik hitz egiten duzu... Jose Morales

Lasaitzen naiz, beraz, eta besteak eseki baino lehen, ea zenbaki hura ote den galdetzen diot, hitz egite **aldera** soilik. Joxe Austin Arrieta

9 ***ahuntzak adarrak dituen aldera*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Inperioa jaisten ari da eta, esaerak dioenez, **ahuntzak adarrak dituen aldera** begira behar izatea, bestela bezala arituz. ETC-prentsa

10 ***alde-aldera***

Floristan Imizkoz jaunak dioenez terminologia modernoan identifika genezake, **alde aldera**, estilo periodikoa "menpekotze"arekin eta elkarbigiztatua lotze edo "koordinatze"arekin. Patziku Perurena

11 ***aldera jo***

Musulmanek, berriz, sikhtarrek hindutarren **aldera jotzen** dutela uste dute, behia ohoratu eta zerria jaten baitute. Gotzon Garate

Tadeo Jones, bestalde, umore **aldera jotzen** duen bakarra da, baina ez du lortzen irribarrez aparte ezer, amaiera anekdota hutsa delako. Berria - Kultura

Hurrena, berriz, itsaso **aldera jo** beharrean, etxe aldera hartu nuen, eta azkar samar suaren aurrean ginen berriro. Xabier Olarra

12 ***beste aldera*** ik **bestalde 8**.

Ez nengoen beharturik, ghettoan, zaldi bat bezala ibiltzera, kale erditik; jendeak ez zidan gorrotoz so egiten eta ezagutzen nituenek ez zuten aurpegia **beste aldera** jiratzen eta ez ninduten zapuzten. Felipe Juaristi

Kontatu nizun plazan mutil guztiak elkarrekin bueltaka ibiltzen zirela, alde batera, eta neska guztiak, juxtu **beste aldera**. Arantxa Iturbe

Literatura hilda zegoela entzutera ohitzen hasiak gineneko honetan, Patri, erabat jo dugu **beste aldera** eta literaturak bakarrik isla dezakeela errealitatea hasi gara esaten. Hasier Etxeberria

Y grekoa bezalako erabaki garrantzitsuak hartzen ari direnean, PP, EAJ eta EAren adostasunez, ezin dugu beste **aldera** begiratu eta ez garela joango esan. Berria - Euskal Herria

---

alderaezin **1** *izond* ezin alderatuzkoa, konparaezina.

Grezia arkaikoko lehenengo eskulturak idoloak ziren, jainkotasunaren zentzumenezko agerpenak balira bezala sortuak eta gurtuak (agerpen hori jainkotasunaren beraren aldean osagabea eta harekin **alderaezina** bazen ere). Josu Zabaleta

Zorte ona izan zuen, letxuaren kukuiluko hosto ezin samurragoak egokitu zitzaizkion, kukuiluetan biltzen dira, eta hau denek ez dakiten egia da, goizaren freskotasun **alderaezina**, ihintza, langarra, dena gauza bera da. Jon Alonso

Solasaldi luzea izango dut Bombadilekin: nire denbora osoan zehar izan ditudan solasaldiekin **alderaezina**. Agustin Otsoa

Maria Barbalek, bi norabideetako emigrazio, erran gabe doa **alderaezinak** biak, erakusten dizkigu *Calle Bolivia*-n: Andaluziara joandako kataluniar burgesena eta langile soil moduan Bartzelonara etorri ziren andaluziarrena. Berria - Kultura

2 (izen gisa)

Ezberdintasunak desegiten ditu oroimenak, eta **alderaezin** guziak berdintzen. Patziku Perurena

---

alderagarri *izond* aldera daitekeena, konparagarria.

Erregelaren orokortasun hertsia ere ez da erregela enpirikoen berekitasuna, izan ere, hauek indukzioaren bitartez orokortasun **alderagarria** baino ezin dute lortu. Ibon Uribarri

Agirre ez da **alderagarria** beste politikariekin. Berria - Euskal Herria

Bere papera hemen **alderagarria** da Mendebaldeko Eliza Katolikoak Hungaria, Polonia eta Eskandinavia Mendebaldeko Kristandadearen orbitara erakartzen jokaturiko paperarekin, eta Ekialdeko Eliza Ortodoxoak Zibilizazio Kristau Ortodoxoaren kimua Errusiako lurrean landatzen jokatu zuenarekin. Iñaki Mendiguren

Erlijio nagusi baten bizitasun iraunkorra, garai batean Mendebaldeko larba-gizarte bati bere krisalida eman ziona, nabarmen falta izandako elementua zen gainerantzean **alderagarria** zen egoera helenikoan. Iñaki Mendiguren

Nik, beraz, esanahi hedatu honetan erabiliko dut "absolutu" hitza, eta **alderagarria** edo ikuspegi berezian baliogarria denari kontrajarriz besterik ez; izan ere, azken hau baldintzetara murrizten da, hark, ordea, murriztapenik gabe balio du. Ibon Uribarri

---

alderagarriki *adlag* era alderagarrian.

Gauzaren izatea, ordea, bere hautemapenaren aurretik ere ezagut daiteke **alderagarriki** a priori, baldin eta hautemapen batzuekin soilik elkartzen bada bere (analogien) elkarlotura enpirikoaren oinarri-esakuneen arabera. Ibon Uribarri

Sentsuen objektuen existentziarik ezin daitekeenez osoki a priori ezagutu, baina bai **alderagarriki** a priori jadanik emandako izate bati dagokionez. Ibon Uribarri

Materiaz ezagutzen dugun bakarra hartueman hutsak dira (bere barneko determinazioak deitzen diegunak **alderagarriki** baino ez dira barnekoak); baina hartueman hauen artean beregainak eta iraunkorrak direnak ere badaude, eta horien bidez ematen zaigu objektu determinatua. Ibon Uribarri

---

alderago **1** *adlag* harago.

Baina ez zuen uste inork halako proposamenik egingo zuenik, harako ibilbidea gero eta beste **alderago** geratzen ari zitzaienez gero. Pedro Alberdi

Pirinioetatik behera, apenas: hortxe, Pirinio mendietan eta **alderago** ja, Kantauri aldeko mendiotan. Pello Zabala

2 *adlag* gertuago.

Mirenen baserri **alderago**, jaurtiketa eremutik kanpo, gudu-lekuko egoera aztertu nuen, Napoleonek Austerlitzen bezala. Joxean Sagaztizabal

Zenbat eta ipar **alderago**, udazken aldera margo gorrixtaz apaintzen da. Pello Zabala

Itsas **alderagokoak** dirudite beste hauek, euri osteko izoztea aipatzen baitute: alegia, eurijasa batzuen eta lokatzaren osteko hotzaldiak, oraingoan elurra ez baina euria dakarrela. Pello Zabala

Maristen Ikastetxea mendipean bertan, bere frontoia eta guzti, nirea izana; eta ezker **alderago**, trenaren geltokia eta Azoka zaharra. Txillardegi

Zenbat eta portu **alderago**, hainbat eta ozenago zalaparta. Xabier Montoia

Baratzea baino harago, errekatik **alderago** baina eguzki betean, artoa zeukan eginda. Anton Garikano

Gero trinketaren **alderago** egin nuen, bete-betean gaixoen zokondoaren gainean nengoela ziur izan nintzen arte. Edorta Jimenez

3 *adlag* zerbaiten edo norbaiten aldekoago.

Nonbaitean argia erakutsiko ahal diot, zoria nere **alderago** dabilen egunen batean. Patziku Perurena

Margoten **alderago** jartzen bada, Margot goraipatzen badu, Margoti laztanak egiten badizkio, zerbaitek barrenetik hozka egiten dit, zeren ni txoratuta bainago aitaz, nire eredurik onena da, munduan ez dut hura beste inor maite. Josu Zabaleta

Europa eta Asia kontinenteen artean dago Turkia; geografikoki Asiaren **alderago** Europarenean baino. Berria - Mundua

Zure iritziak, edozertaz zirela ere, aintzakotzat hartzen ziren orduan eta, segur naiz, orain gurekiko uzkur agertzen diren anitz **alderago** izango genituzke, zu gurekin ikusiz gero. Xabier Montoia

---

alderagoko *izlag* gertuagokoa.

Itsas **alderagokoak** dirudite beste hauek, euri osteko izoztea aipatzen baitute: alegia, eurijasa batzuen eta lokatzaren osteko hotzaldiak, oraingoan elurra ez baina euria dakarrela. Pello Zabala

---

alderaketa **1** *iz* alderatzea, erkatzea.

1769an egin zen sanskritoaren eta latinaren konjugazioen arteko lehen **alderaketa** berriro eguneratzea. Xabier Arregi

Alderaketa emandako botoen ehunekoekin eginez gero, hamahiru puntukoa da aldea: %63,2 baiezko Hego Euskal Herrian, %76,6 Espainiako Estatuan. Berria - Harian

Erkaketa horiei dagokienez, egin daitezkeen **alderaketak** ezin konta ahalekoak badira ere, datu foniko eta psikiko iraunkor batzuek mugatuak datozkigu; datu horiek zedarritzen duten esparruaren barnean osatu behar da hizkuntza osoa. Isabel Arrigain

Eskualde bereko herrialdeen arteko **alderaketak** egiterakoan, nekez esan daiteke betidanik beregain izan direnak kolonia izan direnak baino hobeto daudenik. Iñaki Heras

Neurriez eta formez hartzen ditugun ustezko iritziak ez du inolako balio absoluturik, organo baten ahalmenak eta geure buruarekin egiten dugun **alderaketak** baizik ez baitute erabakitzen hori. Josu Zabaleta

Orduan izan nuen **alderaketa** egiteko parada. Txillardegi

Egun, **alderaketok** egiteko neurri aproposa izan daiteke lasterketako itzuli azkarrena. Berria - Kirola

Hasieran maxima logiko batek agintzen du itxurazko ezberdintasun hori modu ahalbait zabalenean gutxitzea **alderaketaren** bitartez ezkutuko identitateak aurkituz eta aztertuz ea irudimena kontzientziarekin lotuta gogoramena, asmamena, bereizmena eta agian adimena eta arrazoimena ere ez ote den. Ibon Uribarri

Halako oinarri-esakuneak ez die ezein lege ezartzen objektuei, eta ez du barnebiltzen inolaz ere haiek oro harrezko objektu gisa ezagutzeko eta determinatzeko ahalgarritasunaren oinarririk, baizik eta gure adimenaren hornigaia kudeatzeko lege subjektiboa besterik ez da, bere adigaien **alderaketaren** bitartez beren erabilera orokorra beren kopuru ahalbait txikienean biltzeko. Ibon Uribarri

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bi bikoteen arteko **alderaketarik** onena aurrez aurre jokatuta ikusten da, baina hori gertatu bitartean aurreko bi jardunaldietan utzitako emaitzei erreparatu beharko zaie. Berria - Kirola

Hausnarketa logikoa **alderaketa** soila dela esan daiteke, izan ere, bertan errepresentazio jakinak zein indar ezagutzaileri egokitzen ote zaizkion kontuaz abstraitzen da osorik, eta errepresentaziook, hainbestez, beren egoitzaren arabera gogamenean homogeneoak balira bezala tratatu behar dira. Ibon Uribarri

Ikuspuntua jaialdiaren barruan zinema japoniarraren inguruan argitaratu den liburuan **alderaketa** ugari egiten dira Europan eta Japonian egiten den dokumentalen artean. Berria - Kultura

Gehien jota kontzeptuak eratzeko arauak **alderaketa** sistematiko baten bidez erka daitezke eskualde bataren eta bestearen artean. Xabier Arregi

Oso inportantea da, beraz, lekuko guztiak akusatuarekin erkatzea, horrela **alderaketa** ez dadin arbitrarioa izan. Juan Martin Elexpuru

Bera izan zela "nire guru", "nire bizitza aldarazi zuen gizona", hunkipen eta bizipen pertsonalak blaitutako esaldien bidez, besteekiko **alderaketaz** lortzen dena baino askoz ere efektu laudagarriagoa eta benetakoagoa lortuz. Berria - Kultura

Errugbia asko aldatu da eta ezin da benetako **alderaketa** bat egin. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Arrazoi honegatik, badirudi aipatutako adigaiei **alderaketa**-adigaiak deitu beharko geniekeela (conceptus comparationis). Ibon Uribarri

Garizuma bezain luze, azaltzen da edozein konparazio botatzeko orduan, lehenagoko idazkietan, ze orain bestelako **alderaketa** -punttuak hartzen baitira askozaz errazago. Pello Zabala

Gertakarien data-**alderaketak** baietsi egiten baitzuen irizpide hori. Txillardegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alderaketa bat (3); **alderaketa eginez** (3); **alderaketa egiteko** (3); **alderaketaren bitartez** (3)

---

alderako 1 *adlag* -en aldera, -en truke. ik **aldera 4**; **aldera 6**.

Tenplurik ez duten herriek atxikimendu urria dute erlijioaren **alderako**: horra zergatik tartariarrak hain toleranteak izan diren betidanik. Iñaki Iñurrieta

Ekintza, hitzaren **alderako**, zinemako irudi bidimentsionala pertsona bizi tridimentsionalaren **alderako** den bezala da edo, nahiago baduzue, fotografia bat orijinalaren **alderako** den bezala. Matías Múgica

2 *berreste alderako isuri* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Berreste alderako isuria, berreste isuria edo baieztatze alderako isuria gizaki orok daukan joera bat da, isuri kognitibo bat. ETC-entziklopedia

Haren aburuz, informazioa kontsumitzeko garaian, faktorerik garrantzitsuena **berreste alderako isuria** deitua da: norberak bere sinesmenarekin bat datozen informazioak aukeratzeko joera, alegia. ETC-prentsa

" **Berreste alderako isuri** " esaten zaio horri euskaraz -Euskaltermen bederen-, eta nahikoa fenomeno hedatua eta unibertsala da, ziur asko eboluzioaren ikuspegitik azaldu litekeena. ETC-literatura, saiakera

3 *sinesteen alderako isuri* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Sinesteen alderako isuria gizaki orok daukan joera bat da, isuri kognitibo bat. Argudioen indarra aukeratzeko joera da, haien konklusioaren onargarritasunean oinarrituta, ondorio hori zein sendoki sostengatzen duten baino. ETC-entziklopedia

---

alderakotzat *adlag* zerbaiten edo norbaiten aldera.

Eta bistan da, halaber, ezen, fruituen **alderakotzat**, zirkuak anitzez joriagoak eta emankorragoak izan zirela. Joan Mari Irigoien

Baina guztiarekin ere, neure obligazio handiek, ondasun errezibituek, eta betiere, ene **alderakotzat**, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ez didate uzten, ondotik bederen, kanporat ateratzeko, ausartziarekin batera. Pello Salaburu

---

alderantzi 1 *iz* nagusia edo berezkoa ez den aldea.

Gauza guztiek ba omen dute beren aldea eta **alderantzia**. Gotzon Garate

Alderantzia ere ez da ulertzen, nola atzo, autore horiexetakoren batzuen ustez bederen (ez baita aspaldi, "postmodernoenak" beraiek agertzen zirela), balioen erlatibismoak justu indarkeria haren kontra balio nahi zuen, beraiek uste zutenez. Joxe Azurmendi

Minutu gutxiren buruan, zocoa kaletxo huts, koloregabeen segida bihurtu zen, azpikoz gora jarri balute bezala, **alderantzia** agerian zuela. Bernardo Atxaga

Ulertzen zuen nola zeuden elkartuak musikaren zatiak, bariazio bat beste baten **alderantzia** zela, hainbat ahots, doinu bati jarraitu ondoren, kanon edo fuga batean elkar zitezkeela, eta, are gehiago, bera ere gai zen fuga sinple bat taxutzeko. Xabier Olarra

Hirugarren interpretazio horri (errefusaezina baiteritzot) ez dakit ausart naitekeen laugarren bat gaineratzera, Pierre Menard-en apaltasun ia jainkozkoarekin txit ongi ezkontzen dena: berak gogokoen zituenen **alderantzi** petoa ziren ideiak zabaltzeko joera etsi zein ironikoa. Juan Garzia

(Gaitzerizpen hori, derragun parentesi artean, Valéry-ri buruz benetan zuen aburuaren **alderantzi** doi-doia da. Juan Garzia

Horren **alderantzian**, asperdura da gizakiaren aztarnarik hilgarriena. Patziku Perurena

2 *alderantziz* *adlag* ohi denaren edo adierazi denaren kontrako moduan.

Alderantziz, 1996tik 2001era, sei aldiz jarraian *Fortune* aldizkariak AEBetako enpresa berritzaileena tituluarekin saritu zuen. Berria - Ekonomia

Liburua **alderantziz** atxikitzen baituzu! Ramuntxo Etxeberri

Emakumeengan **alderantziz** gertatzen da. Berria - Kultura

Orain, ordea, **alderantziz** da: errealitateak imitatzen du fikzioa. Joxerra Garzia

Mugimendua **alderantziz** doa: berrogeitamar bat langile erretretan sartzearekin ez dira ordezkatuak izanen eta Angeluko lantegian 1040 langile izanen dira orotara. Herria

Ideia batek zenbat-eta intensio eskasagoa, orduan-eta estensio handiagoa du, eta, **alderantzi**, intensioa ugariagoa eta estensioa urriagoa. Iñaki Segurola

Kopernikoren teoriaren eta hipotesiaren arabera, Lurra Eguzkiaren inguruan ibiltzen da, eta ez **alderantziz** -ordu arte uste zen bezala-. Patxi Altuna

Alderantziz izan balitz, zu ez zinatekeen ohartuko, baina Ximurra bai. Aingeru Epaltza

Don Pepe Manterola, **alderantziz**, orain agurtu dudan jaun horren iloba dena, liberala duk. Txillardegi

Gertatuko da ezen lehen eskuin zena orain ezker izango dela eta, **alderantzi**, ezkerra eskuin. Xabier Amuriza

Arkeologiak **alderantziz** jokatzen du: historiaren pazientziak luzatu dituen hari guztien korapiloak askatzea bilatzen du. Xabier Arregi

Ikasi dut ere **alderantziz** bertze mugimendu bat badela mundu huntan, Jesus, Jainkoaren profetak sortu duena eta haren dizipuluek zabaldu dutena. Michel Oronoz

Orain Unamuno **alderantziz** argudiatzen topatzen dugu. Joxe Azurmendi

Ez zuen kontra egin; **alderantzi**, ikaragarri gustatu zitzaion. Joxe Austin Arrieta

Ez dugu inoiz besteen gain egoterik irrikatu behar; **alderantzi**, gizaki ororen morroi eta mendeko behar dugu izan Jainkoarengatik. Askoren artean

Urrialdirik bada (benetakoa nahiz aurrez ikusia), prezioen gorakadak ez du eskaria murriztuko, **alderantzi**, erreserbak metaraziko ditu, urritasunari aurrea hartzeko nahiz espekulatzeko. Koro Navarro

Erlijioaren Filosofia, diziplina legez hartuta, nahiko berria da, ez da historia luzekoa, **alderantzi**, duela mende gutxi sortutakoa da, XVIII. mendean. Askoren artean

Zenbat eta perfekzio gehiago baitu gauza batek, hainbat eta gehiago du egiten eta hainbat gutiago pairatzen; eta, **alderantziz**, zenbat eta eraginkorrago baita, hainbat eta beteginago da. Piarres Xarriton

Baina, **alderantziz**, halako horrek zerbait egin baldin badu besteak Tristuraz hunkitzen dituela irudikatzen duena, Tristuraz kontenplatuko du bere burua. Piarres Xarriton

Giza arima bakoitza substantzia bat da alabaina, nahiz **alderantziz** edozein substantzia ez den giza arima. Piarres Xarriton

Lehen Txekian zerbait falta bazen, Eslovakiak eskaintzen zuen, eta **alderantziz**. Berria - Mundua

Ikurrak tradizioaren legea besterik ezagutzen ez badu, arbitrarioa delako da, eta **alderantzi** ere, arbitrarioa izan daiteke, tradizioan oinarritzen delako, hain zuzen. Isabel Arrigain

Uda guztia maitasun istorioak irakurtzen pasatu nuen, eta liburu guztietan eskema berbera errepikatzen zela konturatu nintzen: neskak aurkitzen du mutila (edo **alderantziz**) eta oztopo bat dago; eta oztopo hori gainditzen da edo ez baina oztoporik gabeko maitasun istoriorik ez dago. Ana Urkiza

Denborarekin jabeek beren zakurren antza hartzen dute, edo **alderantziz**, igualtsu da. Harkaitz Cano

Autoan izandako istripuak apoplexia eragin ziola uste zuen (edo **alderantziz**, istripuaren eragilea apoplexia izan zela), eta beldur zen ez ote zuen halako batean berriro ere apoplexiak joko. Xabier Olarra

Batetik alderanzketa da: zeozer **alderantziz** edo hankazgoratua dabilelako. Pello Zabala

Egintza gaiztoa da, ez legeak debekatzen duelako, **alderantzi** baizik; hain zuzen, gaiztoa delako debekatzen du legeak. Imanol Unzurrunzaga

"Gerrako denborak gogoratzera" hari eman zion erantzun murritzak ez zuen, noski, txoferraren jakin-mina ase; **alderantziz**, antza. Ramon Saizarbitoria

Ez zuen bertzeak baino zailduagoa ematen gerlaren langintzan, izatekotan **alderantziz** . Aingeru Epaltza

Orduan, erregeak esan zuen: -Beraz, batak dio berea duela bizi dena eta bestearena hildakoa; besteak, berriz, **alderantziz** . Jose Antonio Mujika

Maitemina hondo-hondoraino sartu zitzaidan, baina igoera baten gailur gisa, ezen ez lehen urratsetik; nik urte batzuk lehenago uste nuenaren **alderantziz** . Juan Kruz Igerabide

3 *alderantziz proportzional*

Fluxu horren lastertasuna distantziaren **alderantziz proportzionala** da (hurbil dauden gauzak bizkorrago mugitzen direla ematen du), eta distantzia horri buruzko informazioa ematen du, horrenbestez. Josu Zabaleta

4 *alderantzizko izlag* ohi denaren edo adierazi denaren kontrako modukoa.

Alderantzizko piramide baten forma osatzen zuten irudiaren azpiko hizkiek, nortzuk parte hartuko zuten iragartzen zutenak. Josu Landa

Alderantzizko kasua, alegia erradikalaren elementu bat atzizkiari eranstea, askoz sarriagoa da. Isabel Arrigain

Alderantzizko iritziak aditu ziren GAD Aliantza Demokratiko Handia zentroko eta ezkerreko oposizioko indarrek Milanen egin zuten elkarretaratzean. Berria - Mundua

Inork esango du premia ekonomikoak eragindako jarrera dela, baina ni nago **alderantzizko** logika baten gurpilak ibilarazten duela jokabide hori: lana bera da -lan fisikoa, jakina- helburu, etekina baino. Anjel Lertxundi

Badirudi estatu baten masak bere osatzaileen sentiberatasunaren **alderantzizko** proportzioan egon behar duela, zeren eta bestela, bata eta bestea handitzen badira, lege onak delituak oztopatu nahian hasten direnean, sortu duten onuran bertan aurkituko baitute eragozpena. Juan Martin Elexpuru

Alderantzizko ordena ere onartzen du zenbaitetan euskarak, baina ez dirudi hori denik berezko joera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Alderantzizko bidea ere har genezake: euskaratik erdarara. Iñaki Arranz

Prozac, izan, bedeinkazio bat izan da tourettedun askorentzat, nahiz eta batzuentzat erabat eragingabea izan, eta beste batzuei, berriz, justu **alderantzizko** ondorioak eragin: urduritasuna, obsesioak eta amorrazioa areagotu dizkie. Xabier Olarra

Jerarkia iraultzen delako itxurak egin urtean behin, justu **alderantzizko** eragina sortzeko: jerarkia ofiziala sendotu zeremonia alai errukarri itxurakoz, gaztetxo alkatetu horrek engoitik bere bizi guzian, umetako alkate izate gogoangarri huraxe irrika itsuz bila dezan. Patziku Perurena

Berehala, prozesua **alderantzizko** norabidean gertatuko da: irudi akustikoaren bidalketa fisiologikoa gertatuko da, belarritik burmuinera; burmuinean, azkenik, irudi honen elkarketa psikikoa, dagokion kontzeptuarekin. Isabel Arrigain

Operatik abiaturik, Bulebar Handietan gora jo zuten, automobilen zirkulazioaren **alderantzizko** noranzkoan, Saint-Martin ateraino. Jon Muñoz

Kasu honetan hautatze-murrizketa berberak aurkitzen ditugu, baina **alderantzizko** hurrenkeran. Hego Euskal Herrian alderdi sozialista eta PPren artean antzeko harremanak daude (Nafarroan **alderantzizko** korrelazioa baldin badute ere). Itziar Laka

Batzuetan elurrak bideak ixten ditu, eta, irratiko lokutoreek esaten duten bezala, "kaos bat" bihurtzen da dena, hots, kosmosaren, bizimodu ordenatuaren **alderantzizko** zerbait Galera sakon baten sentsazioa -ikustea desatsegin eta higuingarri izatea-, hain larria izanik buruko lesioa izan eta hurrengo hilabeteetan, geroztik desagertu edo **alderantzizko** bihurtzen ari bide zitzaion. Bernardo Atxaga

5 *alderantzizko barra* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

1960an Bob Bemmerrek sortua, batez ere informatikan erabiltzen den ikurra da **alderantzizko barra** (ingelesez, "backslash"). Puntuazio zeinu bezala erabiltzen den barra arruntaren ispiluko irudia da (----). ETC-entziklopedia

Hori dela-eta, Pythonek **alderantzizko barra** (karakterea) duten konstanteak sortu ditu (C lengoaiarenak ere halaxe dira), 2.2. taulan ikus daitezke batzuk. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *alderantzizko elementu* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Permutazio-matrizeen taldeko elementu bakoitzeko **alderantzizko elementua** bakoitzari dagokion matrize iraulia da. ETC-entziklopedia

Aljebran, multzoan definitutako eragiketa biderketa denean, **alderantzizko elementua** elementu baten simetrikoa da; elementuaren **alderantzizko elementua** da hau betetzen badu: ETC-entziklopedia

7 *alderantzizko funtzio* *(corpusean ez dago; ETCn **77** agerraldi)*

Matematikan, "f (x) " funtzio baten **alderantzizko funtzioa** , "f-1 (x) " izendatzen dena, B Irudi (matematika) irudi-multzo bateko edozein elementuri A iturburu-multzoko elementu bat, eta bakarra, esleitzen dion arau orokorra da. ETC-entziklopedia

Guk **alderantzizko funtzioa** eman nahi diogu, trena bisitariei azalpenak emateko erabiliko dugu? ETC-prentsa

Peter Bergerrentzat (Berger, 1971), boterearen legitimizatzeaz gain, erlijioak **alderantzizko funtzioa** bete dezake anitzetan: boterearen erlatibizatzea, bere zinezko neurria oroitaraziz, hau da, gizonen eraikuntza bat dela eta bertzerik ez. ETC-literatura, saiakera

Baina zenbait iturriren bidez jakin izan da kapitalismo aurreratu bateko hezkuntzak **alderantzizko funtzioa** betetzen duela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azalera partikulen tamainaren **alderantzizko funtzio** denez, zenbat eta txikiagoak izan partikulak, orduan eta azkarrago disolbatuko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hau da, aurreko adierazpenaren **alderantzizko funtzioa** da, aurrekoari falta zaizkion biderketa kanoniko guztiak baititu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ingurumen-narriadurak harreman zuzena du sistema ekonomikoak darabilen bizigabeko energiaren potentziarekin; eta **alderantzizko funtzioa** du efizientzia metabolikoarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eragiketa ezeraikitzaileen artean eragiketa suntsitzaileak bereiz daitezke, zeinak edozein eragiketa eraikitzaile ez-konstanteren (gutxienez parametro bat duten eragiketa eraikitzaileen) **alderantzizko funtzioak** baitira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erabilera indibidualaren goi-muga zehazteko funtzioa, erabilera isotropiakoaren **alderantzizko funtzioa** da. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 *alderantzizko funtzio trigonometriko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Badira hiru notazio arrunt **alderantzizko funtzio trigonometrikoak** adierazteko. ETC-entziklopedia

9 *alderantzizko ibai delta* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Geomorfologian, **alderantzizko ibai delta** . ETC-entziklopedia

10 *alderantzizko ingeniaritza* *(corpusean ez dago; ETCn **36** agerraldi)*

Alderantzizko ingeniaritza (edo "Back engineering"), prozesu bat da non objektua erauzten den eta bere diseinua, arkitektura edo objektuaren ezagutza erauzteko ezagutza ematen den. ETC-entziklopedia

Alor hauetan aplika daiteke **alderantzizko ingeniaritza** : ingeniaritza mekanikoa, ingeniaritza elektronikoa, software ingeniaritza, ingeniaritza kimikoa, eta sistemen biologian. ETC-entziklopedia

Alderantzizko ingeniaritza esaten zaio horri. ETC-literatura, saiakera

11 *alderantzizko itzulpen* *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Alderantzizko itzulpena itzultzaileak bere jatorrizko hizkuntzan idatzitako testu bat (iturri testua) bigarren hizkuntzara itzultzen duenean (helburu testua) gertatzen den itzulpen mota da. ETC-entziklopedia

Alderantzizko itzulpen literarioaren eta zuzenekoaren hastapenetarako tresna bat da liburua, itzulpengintzako ikasleentzako gida bat. ETC-prentsa

Horietako bi aztertuko dira segidan: **alderantzizko itzulpena** eta polirribosomen prezipitatzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du, zuzeneko edo **alderantzizko itzulpenerako** baliabide guztiak eskura izateko, baliabide horiek adierazpen honetan jasotako eskubideen egikaritza bermatzen duten neurrian. ETC-zientzia, zuzenbidea

Batzuetan **alderantzizko itzulpena** behar da, alegia, Ethernet helbidea jakinda IP helbidea lortu, eta horretarako RARP -alderantzizko ARP- protokoloa dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edo bestela **alderantzizko itzulpenak** egiten dituzte euskaldunek, euskaratik euren ama hizkuntza ez den ingelesera, adibidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

12 *alderantzizko matrize* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Alderantzizko matrize zatituaren teoremaren arabera, berriz, honela adieraz daiteke jatorri-ordenatuaren bariantza: ETC-zientzia, zuzenbidea

Ax=b itxurako problemen kasuan, A **Alderantzizko matrize** matrize singularra edo ia singularra bada, A matrizea balio singularren deskonposaketaren bidez hiru matrizeren

biderketa gisa adierazten da. ETC-entziklopedia

13 *alderantzizko poloniar notazio* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Matematikan, **alderantzizko poloniar notazioa**, atzizki notazioa, idazkera poloniar alderantzizkoa edo postfixu bidezko notazioa datuak sartzeko metodo aljebraiko alternatibo bat da. ETC-entziklopedia

14 *alderantzizko sublimazio* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Teoriak dio planetak planetesimalen akrezio bidez eratu zirela eta, aldi berean, planetesimalak kondentsazio bidez eratutako partikulen akrezio bidez eratu zirela (zehazkiago, **alderantzizko sublimazio** bidez). ETC-entziklopedia

Sublimazioa solidotik gasera igarotzean datza eta **alderantzizko sublimazioa** gasetik solidora. ETC-entziklopedia

Atmosferak ura kondentsazio bidez (euria eta ihintza) edo **alderantzizko sublimazio** bidez (elurra eta izotz zuria) gal dezake. ETC-entziklopedia

15 *alderantzizko transkriptasa* *(corpusean ez dago; ETCn **76** agerraldi)*

Alderantzizko transkriptasa edo erretrotranskriptasa RNA mendeko DNA polimerasa da, transkripzio genetikoaren alderantzizko prozesua burutzen duena. ETC-entziklopedia

Birusaren RNAren DNA-kopia bat sintetizatzen da birusaren **alderantzizko transkriptasa** entzimaren bidez (erretrobirus guztien bereizgarri den prozesua), eta DNA hori zelula ostalariaren DNAn integratzen da integrasa entzimaren ekintzaren bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ostalariaren zelulan sartzean, birusak berak duen **alderantzizko transkriptasa** entzimaren bidez RNA molekula helize bikoitzeko DNA molekulan bihurtzen du. ETC-entziklopedia

RNA mezulariaren itzulpena zitoplasman, non proteina birikoak ekoitzi eta metatzen diren, horien artean **alderantzizko transkriptasa**. ETC-entziklopedia

Barne estalkiaren barruan ARNz gain, **alderantzizko transkriptasa** deritzan entzima dago; hau da erretrobirus bat definitzen duena eta haren erreplikaziorako ezinbestekoa dena. ETC-entziklopedia

Birus hauek funtsezko entzima baten jabeak dira: **alderantzizko transkriptasa**. ETC-entziklopedia

16 *alderantzizko zenbaki* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Matematikan, "x" zenbaki baten **alderantzizko zenbakia** 1? "x" edo "x"? 1 adierazitako beste zenbaki bat da, zeina bider "x" eginez gero bat 1 ematen duen. ETC-entziklopedia

17 *biderketarekiko alderantzizko modular* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

bbZ multzoko elementu guztiek ez dute alderantzizkorik, ezta bbZ-n multzoko guztiek **Biderketarekiko alderantzizko modular** alderantzizko modularrik ere. ETC-entziklopedia

Biderketarekiko alderantzizko modularra aritmetika modularrareko eragiketa bat da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **agian alderantziz** (4); **ala alderantziz** (8); **alderantziz baino** (6); **alderantziz baizik** (45); **alderantziz behar** (5); **alderantziz da** (11); **alderantziz dela** (6); **alderantziz egin** (9); **alderantziz egiten** (4); **alderantziz ere** (57); **alderantziz ere gertatzen** (4); **alderantziz ere izan** (4); **alderantziz esango** (4); **alderantziz ez** (4); **alderantziz gertatu** (12); **alderantziz gertatu da** (4); **alderantziz gertatzen** (27); **alderantziz gertatzen da** (11); **alderantziz gertatzen zen** (4); **alderantziz izan** (13); **alderantziz izan da** (4); **alderantziz izango** (4); **alderantziz izaten** (4); **alderantziz jarri** (4); **alderantziz jokatu** (4); **alderantzizko bidea** (17); **alderantzizko bidea egin** (4); **alderantzizko eragina** (5); **alderantzizkoa da** (16); **alderantzizkoa ere** (13); **alderantzizkoa gertatu** (16); **alderantzizkoa gertatu zen** (8); **alderantzizkoa gertatzen** (8); **alderantzizkoa izan** (6); **baina alderantziz** (29); **baina alderantziz ere** (6); **baina alderantzizko** (6); **baina alderantzizkoa** (5); **baina ez alderantziz** (5); **dena alderantziz** (4); **dut alderantziz** (4); **edo alderantziz** (86); **edo alderantzizko** (4); **eta alderantziz** (206); **eta alderantziz ere** (18); **eta alderantzizko** (5); **eta alderantzizkoa** (5); **eta ez alderantziz** (42); **ez alderantziz** (66); **ezta alderantziz** (5); **ezta alderantziz ere** (5); **guztiz alderantziz** (5); **guztiz alderantzizkoa** (6); **juxtu alderantzizkoa** (4); **nik alderantziz** (4)

---

alderantzikagarri *(corpusean ez dago; ETCn **152** agerraldi)* *izond* alderantzika daitekeena. ik **itzulgarri 4**.

Fisika zaharrean, hiru bider bi sei da eta bi bider hiru sei da, proposizio **alderantzikagarriak** dira. ETC-literatura, saiakera

Distantzia hori polinukleotido kate luzatu baten nukleotidoen arteko luzerari dagokio gutxi gorabehera, eta DNAn egongo balitz zuntz **alderantzikagarri** hedaezinak emango lituzke. ETC-literatura, saiakera

L=K1 instrumentu ditugun kasuan, karratua eta **alderantzikagarria** izango da Z (X matrizea, eta, beraz, nabarmen sinplifikatzen dira AI zenbateslerako (8.16) adierazpenak eta kobariantza-matrizea: ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala, elementu diagonal nulu edo oso txiki bat agertzen denean, elementu hori hurrengoarekin elkartu daiteke 2 (2 bloke **alderantzikagarri** batean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dena dela, birformulazio mota bietan gertatzen da menderakuntzazko erlazioa, baldin birformulakizuna eta atal birformulatzailea **alderantzikagarriak** ez badira eta, beraz, diskurtsoaren jarraipenerako atal birformulatzailea jotzen bada baliozkotzat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bai subjektu eta bai objektu guztiak izaki bizidunak ziren, eta **alderantzikagarriak** (reversible) ziren: subjektuak objektu izan zitezkeen eta objektuak subjektu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Uzkia **alderantzikagarria** daukate, mehatxatuak ikusten direnean kirats jasanezina botatzeko gai izanez. ETC-entziklopedia

Aurretik aipatu den bezala, hidrogelak urarekin puztu egiten dira, eta puzte hau **alderantzikagarria** da. ETC-entziklopedia

Itzulpen prozesua ez da beti **alderantzikagarria**; testu batek itzulpen desberdin ugari izan ditzake. ETC-entziklopedia

---

alderantzikatu, alderantzika(tu), alderantzikatzen *(orobat **alderantzizkatu** g.er.)* **1** *(orobat **alderantzizkatu** g.er.)* alderantziz gertatu; alderantziz egin.

Horren ondorioz, bira bakar baterainokoa baino ez daiteke izan errotazioa, eta **alderantzikatu** egin behar da gero. Irene Aldasoro

Elizaren eta zibilizazioaren paperak **alderantzikatu** egiten dira orain, eta elizak -lehenago, "sorraldian", bizitasuna zibilizazio zahar batetik lortuak eta, "ernaldian", interregnoko ekaitzen artean itsastatuak- bere sabelean sorturiko zibilizazio berriari ematen dio orain bizitasuna. Iñaki Mendiguren

Mimesiaren joeraren norabidea aspaldidanik **alderantzikatua** zegoen, eta, barbaroaren begietara zibilizazioak bere ospeari eutsi ordez, barbaroa da orain ospea daukana zibilizazioaren ordezkariaren begietara. Iñaki Mendiguren

Hizkuntza eta literatura baten arimak heriotzatik altxatzen direnean, bien arteko erlazioa **alderantzikatu** egiten da. Iñaki Mendiguren

Gorputza modu honetara egokitzen eta gai egiten duena, nahitaez ona da edo onuragarria, (26. eta 27. Prop. arab.); zenbat eta gehiago Gorputza gai egin baitezake hartarako, hainbat eta onuragarriago; eta, alderantziz, (2. Zat., Prop. ber. arab., hau **alderantzikaturik**, eta Zat. hon. 26: eta 27. Prop. arab.) gauza bat kaltegarria da, hartarako Gorputzaren gaitasuna tipitzen baldin badu. Piarres Xarriton

2 *ibai delta alderantzikatu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ibai delta alderantzikatua, delta maila berezi bat da, non, deltaren mutur estua, itsasertzean sortzen den, eta, zabalena, barnealderago, eta, beraz, gainontzeko deltekiko, mutur bietako tokiak alderantzikatu egiten dira. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **alderantzikatu egiten** (3)

---

alderantzikatze *iz* alderantziz gertatzea.

Kameraren ikuspuntua **alderantzikatze** hori dela interesgarria: kamera ustez berez ikusgai den horretan kokatzea. Iñaki Iñurrieta

Bi gizarte islamikoek, Arabiko eta Iranikoak, Mendebaldeko eta Errusiako gizarteen agindupeko lurraldeetatik munduko beste alde batzuetara lehorrez iristeko bide guztiak itxi zituzten, baina zortearen **alderantzikatze** harrigarria, Islamaren kalterako, zegoen gertatzeko zorian. Iñaki Mendiguren

Zorien **alderantzikatze** politiko eta ekonomiko honen ondorioetako bat zera izan zen: aurrerantzean, alde bakoitzak itxura jasangaitza aurkeztu zuela bestearen begietara. Zirkunstantzia astungarri bat, hamaikagarren mendean, bi kristau-gizarteen indar eta perspektiba erlatiboen bat-bateko, ustekabeko eta egundoko **alderantzikatzea** izan zen. Iñaki Mendiguren

---

alderantzira *(ETCn **71** agerraldi, horietatik **39** azken sei urteetan) adlag* alderantziz.

Eta **alderantzira**: hizkuntza hobekienik dakitela edo "menderatzen" dutela uste duten haiexek. Iñaki Segurola

---

alderantziratu, alderantziratu, alderantziratzen da *ad* alderantzikatu.

Baina han, Canyon de Chellyn, **alderantziratu** egin ziren gure jarrerak. Xabier Olarra

---

alderantzizkatu ik **alderantzikatu**.

---

alderantzizko ik **alderantzi 4**.

---

alderanzgarri *izond* alderantziz jar daitekeena.

Konketa hostopilez egindakoa zen, **alderanzgarria**. Julen Gabiria

Bi ikuspegiak berdin dira justifikagarriak eta **alderanzgarriak**. Xabier Arregi

---

alderanzketa *(ETCn **127** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **inbertsio** agertzen da)* **1** *iz* alderantziz gertatzea, alderantziz jartzea.

Aurkitu nahi duena prozesu baten mugak dira, bihurgune baten inflexio-puntua, mugimendu erregulatzaile baten **alderanzketa**, oszilazio baten mugak, funtzionamendu baten atalasea, kausaltasun biribil baten haustura unea. Xabier Arregi

Genesi Liburuko berba hauek hitzez hitz hartuta, zera dio Edo Nyland jaunak: benetan gertatu zela, duela bost mila urte inguru, orduan egiten zen hizkuntza bakarraren (saharar hizkuntzaren) **alderanzketa** eta nahasketa; Sumerian gertatu zela eta gero orduko mundu ezagun guztian: Egipton, Babilonian, Grezian.., eta **alderanzketa** hori gizarte patriarkal ezarri berriko aitzindari erlijiosoen gidaritzapean gertatu zela. Berria - Kultura

Baina jakin behar da "sustraietako gizonek", erran nahi baita, *mutakallim-n*-ek, munduaren sorreraren alde baietsi dituzten baiespenetan badela "kosmosaren **alderanzketa**" eta "naturaren legeen aldatzerik", zerorrek ikusiko duzunez. Xabier Kintana

Zeinuen **alderanzketa** honi eskerrak, jarraitasun-eza ez da izango gehiago irakurketa historikoaren negatiboa (bere alderantzizkoa, bere porrota, bere ahalmenaren muga) baizik eta bere gaia mugatzen duen eta bere azterketari balioa ematen dion osagai positiboa. Maitasun sokratikoa, **alderanzketa** sexuala eta sodomia ere ez ziren termino egokiak. Xabier Arregi

Hego bafadatxoa dagoeneko goizetan, ez da harritzekoa, lur zoruko izotz zurien gainetik, **alderanzketa** termiko gozoa azaltzea. Pello Zabala

"Lasaitasun oroi-mingarria!"... **Alderanzketa** bikaina oso. Mirentxu Larrañaga

2 ***alderanzketa termiko***

Hego bafadatxoa dagoeneko goizetan, ez da harritzekoa, lur zoruko izotz zurien gainetik, **alderanzketa termiko** gozoa azaltzea (Ik. Urtarrilak 26koa). Pello Zabala

---

alderanztu, alderanzten da/du *ad* alderantziz gertatu edo gertarazi.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran antzemandako joera positiboak **alderanztu** egin direla atzera. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Horrelaxe islatzen da irudia ispilutik ispilura, eta ezker ageri zena eskuin bilakatzen, berriro **alderanzten** eta lehenera itzultzen da. Xabier Amuriza

Haien artean Kal-m-aren zientzia hau sortu zen, eta halako baiespen batzuk onartzen hasi ziren, beren sineskerarako mesedegarriak, baina beren erlijiorako oinarriak **alderanzten** zituzten iritziak, aldiz, errefusatzen zituzten. Xabier Kintana

Gortesia bilakatu baita, hitzaldiko agurra eta lehen hitzak euskaraz egitea eta beste guztia -gaia- erdaraz, pentsatu nuen errito hori **alderanztea**, gaztelaniaz sarrera eginez eta hitzaldia euskaraz. Joxe Azurmendi

Bidezko baita zatiren batzuk gehitzea edo **alderanztea** edo baturatik zerbait, fitsa bada ere, kentzea, gogoa aldatu edo beste edozein substantziari eragin guran dabilenak. Xabier Amuriza

Zein da gure askatasun maila egungo degradazio dinamikak edo hauetara garamatzaten antolamendu egiturak **alderanzteko** unean? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

alderatu, aldera(tu), alderatzen **1** du *ad* konparatu.

Ezin dira Adolf Hitler eta Karl Marx **alderatu**. Berria - Mundua

Hau da, eurak **alderatu** behar ditu, bata besteari kontrajarri eurak agertzen diren aldiberekotasunean. Xabier Arregi

Frantsesezko hiztegia begiratu dugu, eta ondoren Mississippi eta Missouri **alderatu** ditugu. Josu Zabaleta

Horren ondoren, kontrol eta kontrakontrol landu batzuk egiten dira, gutxienez hamahiru gatzatze-faktore **alderatuz**, horien artean kaltzioa (odolean beti dago kaltzioa) eta fibrinogenoa. Irene Aldasoro

Ezta pentsatu ere, ezin baita inola ere **alderatu** besteek sentitzen dutena eta guk sentitzen duguna. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zenbat eta zorrozkiago **alderatu** bi "lege" horiek, orduan eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak. Iñaki Mendiguren

Sakonean **alderatu** ditu gizakiak eta ardiak, eta bildotsen izentxoak ezagutzeko gogoa sortu zaio. Itziar Otegi

Ez dago **alderatzerik** aterkia zabalik zetorkidan mutila ikusterakoan sentitzen nuen hutsunea eta hildakoak utzi zidana. Anjel Lertxundi

Oholtzako emakumea bera etorri zen neskaren mahaira, kartoia eta zerrenda nagusia **alderatzera**. Koro Navarro

2002ko diru laguntzak hartu dira erreferentziatzat datuak **alderatzeko**, iaz Berriak sei hilabeteko bizitzari zegokion dirua jaso zuelako (1.029.450 euro). Berria - Euskal Herria

Lopezek uste du Euskal Herria eta Montenegro **alderatzerik** ez dagoela. Berria - Euskal Herria

Ez dago **alderatzerik** aterkia zabalik zetorkidan mutila ikusterakoan sentitzen nuen hutsunea eta hildakoak utzi zidana. Anjel Lertxundi

Miraria zela aldarrikatu zen, jende guztia emozioak hartu zuen, datak **alderatu** ziren, eta ezbeharra eta ametsak bateratsu izanak zirela ikusi zen: eta hortik atera zen gau berean eta ordu berean gertatuak zirela biak. Josu Zabaleta

Ikus eta **alderatu** bi pasarteak: [...]. Bernardo Atxaga

Katalan, euskal herritar, sardiniar, eskoziar eta okzitaniarrek beren esperientziak **alderatzeko** aukera izango dute. Berria - Mundua

Geroztik eduki dut astia bederatzi poemak xeheki ikusi eta **alderatzeko**, eta, izugarri oker ez banago, behintzat, denak dira Telesforo Monzonenak, eta bederatzietarik zortzi ineditoak ditugu. Berria - Kultura

DNA aztertu dute espezien erloju genetikoa **alderatzeko**. Berria - Gaiak

2 (objektua -kin atzizkiarekin)

Era berean, Naturalisten taxonomia **alderatu** ahal izango litzateke ez gramatikarekin eta ekonomiarekin, baizik eta fisiologiarekin eta patologiarekin. Xabier Arregi

-Nondik atera ote da mutil hau horrelakoa! -esaten zuen; eta harengana pentsatzean maitasuna eta pena nahastuak zituen sentimendu bat izaten zuen, oiloaren harrimenarekin eta etsipenarekin baizik **alderatu** ezin dena. Koro Navarro

1990eko datuekin **alderatuta**, loditasunak eragindako heriotza kopuruak %14 egin du gora; 2000. urtean. Berria - Gaiak

Aurreko egunetako autoen joanarekin **alderatuta**, nahiko lasai daude errepideak. Berria - Harian

Juan Inazio Iztueta horrek zerua du hemengo bizitza, erruz irabazia duen infernuarekin **alderatuta**. Anjel Lertxundi

Konbentzituta zegoen ardoa bezalako hipnotikorik ez zegoela, eta sulfonala eta klorala engainagarri hutsak zirela, harekin **alderatuta**. Josu Zabaleta

Hau baita egia handien zoria, hauek tximista baten iraupena baitute, gizakia estaltzen duen gau luze eta beltzarekin **alderatuta**. Juan Martin Elexpuru

Hala ere, guztion Egilea zaren Jaungoikoa, zer zen nik izan nion errespetua hark niri zidan begirapenarekin **alderatuta**? Imanol Unzurrunzaga

Mira Rothenbergek, zentzu hartan, irazkiekin **alderatu** izan ditu inoiz pertsona autistak, etengabe besteren nortasunak xurgatzen baitituzte, ezeini eusteko edo bereganatzeko ahalmenik gabe, ordea. Xabier Olarra

Gainera mairu hauek hementxe edukitzeko zorte txarra eduki dugu, aberastasun gutxiko jendea, Granadakoekin edo Sevillakoekin **alderatuz** gero. Jon Alonso

Bitxia gertatu zitzaidan benetan Idoiarekin izan nuen maite-tratua, maitemintzeari buruz eskuarki hedaturik zegoen ikuspegiarekin **alderatuta** behintzat. Juan Kruz Igerabide

Beldur hori nik baneukan behintzat: gizon harekin **alderatuta**, ni ezdeusa iruditzea Ritari. Hasier Etxeberria

Ezpainekin **alderatuta** txikiak ez ziren arren, oro har txikiak ziren hortzak, eta zuzen-zuzenak, ederto antolatuta zeuden ilaran. Ibon Uribarri

Erdi Aroarekin zein Postmoderniarekin **alderaturik**, Modernitatea bere osoan razionalismoaren aroa izan da ikuspuntu filosofikotik. Askoren artean

2002ko datuekin **alderatuz**, emanaldien kopurua %10a igo da eta ikusleak %18 gehiago izan dira. Berria - Kultura

Marka guztiak hautsi ditu, 3.806 milioi euroren etekin garbiak aterata; 2004arekin **alderatuz**, %30,2 gehiago. Berria - Ekonomia

Begiespen enpirikoekin **alderatuz** (baita oro har sentsuzko begiespenekin ere), adimenaren adigai hutsak heterogeneoak dira erabat. Ibon Uribarri

Giza primateok askoz ere ume gutxiago ditugu, beste ugaztunekin **alderatuta**. Luis Elberdin

Zer berezitasun du atzemate horrek gainerako atzemate-fenomenoekin, orokorrean, **alderatuz**? Josu Zabaleta

Leibnizek sentsuen objektuak adimenean besterik ez zituen **alderatu** elkarrekin oro harrezko gauzak balira bezala. Ibon Uribarri

Esakune honen bitartez predikatuak elkarrekin logikoki **alderatu** ez ezik, gauza bera ere **alderatzen** da transzendentalki predikatu ahalgarri ororen multzoarekin. Ibon Uribarri

Europako Legebiltzarreko hauteskundeen emaitzekin **alderatzea** argigarria da. Berria - Harian

Eta hori dena, gurearekin **alderatuz** hain eskasa bada ere, asko dela esan behar, hango udaberri eta udakoekin alderatzen badugu. Pello Zabala

Iazkoarekin **alderatuta** sei aldaketa izango ditu zerrendak. Berria - Kirola

Alemaniarekin **alderatuz** gero 18 haur beharko lirateke, eta Frantziarekin **alderatuta** 14 haur. Berria - Euskal Herria

Garazin jaten genuen ogiarekin **alderatuta**. Jokin Urain

Azpimarratu zuen egungo egoera ez dagoela 1973ko edo 1980ko krisi ekonomikoekin **alderatzerik**, azkenaldiko petrolio prezioaren igoerek "ez baitute horrenbesteko garrantzia". Berria - Ekonomia

3 da/du *ad* alboratu, baztertu, aldendu.

Alderatu egiten dena ez da aldaratu egiten, kontrakoa baizik. Iñaki Arranz

Zutitu egin zen eta errezelak **alderatu** zituenean eguzki izpiek aguro mugiarazi zizkioten eskuak begiak babestearren. Joxemari Iturralde

Bien bitartean, La Sarriette eta Lecœur andrea korrika **alderatu** ziren. Karlos Zabala

Barruko gelara sartzeko, ate gisa jarrita zintzilik zegoen oihal luze urdin bat **alderatu** behar izan zen. Joxemari Iturralde

Gregoryk hitzei indarra emateko, esku luze, hezurtsuak goratu zituen eta burua **alderatu**. Iñaki Zabaleta

4 da *ad (-ra atzizkiarekin)* hurbildu.

Kale kantoian, norabidez aldatu, eta, Plazaren zoladura gurutzatu ordez, saihetsera **alderatu** zen, arkupeetan barrena. Pedro Alberdi

Joxepari irribarre ttipi bat atera zaio, eta sukaldeko leihora **alderatu** da. Pello Lizarralde

Juana jiratu eta harraskara **alderatu** da. Pello Lizarralde

Abel ezponda ertzeraino **alderatu** da. Pello Lizarralde

5 ***hizkuntzalaritza alderatu***

Honi guztiari **hizkuntzalaritza alderatuan** aditua izan zen. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderatuz gero (131); **alderatzeko aukera** (4); **alderatzen bada** (3); **alderatzen badira** (5); **alderatzen baditugu** (7); **alderatzen badugu** (10); **alderatzen baldin** (4); **alderatzen ditugu** (3); **alderatzen du** (10); **alderatzen dute** (6); **alderatzen ez** (3); **alderatzen zituen** (4); **alderatzen zuen** (3); **alderatzerik ez** (5); **aurreko urtearekin alderatuta** (12); **datuekin alderatuta** (39); **datuekin alderatuz** (29); **datuekin alderatuz gero** (21); **elkarrekin alderatzen** (4); **ez dago alderatzerik** (3); **hamabostekoarekin alderatuta** (15); **iazkoarekin alderatuta** (32); **urtearekin alderatuta** (21)

---

alderatzaile *izond* alderatzen duena, konparatzen duena.

Oinarrizko indar **alderatzaileak** beren artean alderatu behar dira era berean, beren bateratasuna aurkituz, honela oinarrizko indar erradikalera, h[au] d[a], absolutura hurbiltzearren. Ibon Uribarri

---

alderatze **1** *iz* konparatzea.

Zeren arabera burutu daiteke **alderatze** hori? Askoren artean

Zaita, erdeinu aire bat begitartean, aho zabalik geratu zen, eta ez soil-soilik bere burua Jada baino hobea jotzen zuelako, baina harekin **alderatze** hutsa birao barkaezina zitzaiolako. Patxi Zubizarreta

Gaztelania **alderatze** -erreferentzia egokia dugu, idatziaren eta ahoskeraren arteko tartea erlatiboki txikia izanda ere (cf. ingelesa), garbi erakusten baitu ortografiaren historia luzeagoak dakarren letraren eta hotsaren arteko urrutiratzea. Lourdes Oñederra

2 urruntzea.

Arriskurik gabeko jokaldi batean zortea aldeko izan zuen Chelseako Gudjohnnsenek, eta Arsenaleko Leman atezainaren **alderatze** txar bat ondo baliatu eta bere taldea aurreratu zuen. Berria - Kirola

---

alderdi *(ETCn **210.099** agerraldi)* **1** *iz* iritzi eta helburu politiko jakin bat duten pertsonak biltzen dituen erakundea;

gorputzaren zati bakoitza, eta, pluralean, lotsariak; zerbaitek agertzen duen alde edo era bakoitza; lurralde baten zatia, eskualdea; zerbaiten erdia edo aldeetako bat.

Alderdiak euren artean adostasun batera iristeko gauza ez badira, zer egin behar du Estatuak? Andres Urrutia

Eta, ondorioz, eremu handitan elkarri loturik diren gorputzak deituko ditut gogorrak; eremu tipitan lotuak direnak, aldiz, mardoak, eta beren **alderdiak** elkarren artean mugitzen dituztenak isurkorrak. Piarres Xarriton

Ilusioa, edo ilusioaren **alderdi** bat behintzat, berehala desegiten da, beste berrogei pauso eman, bihurgune bat iragan, eta bigarren aparkamendua ikusten duenean. Bernardo Atxaga

Savanten dohainak hain miragarri, goiztiar eta heldu-tankerakoak izatearen beste **alderdia** zera da: dohainok ez bide direla garatzen dohain normalen antzera. Xabier Olarra

Ziklikoak dira **alderdiok**: munduko bazter urrunetako, antzinako aro urrunetako gertakariak errepikatu edo konbinatzen dituztela dirudi. Juan Garzia

Alderdi askotatatik gizakiok eta zakurrak berdintsu gara. Gotzon Garate

Idazlearendako Unibertsitatea bi **alderdietarik** interesantea gerta daiteke: batetik, ikasle adituekin harremanetan sar daitekeelako zuzenki; eta bestetik, ikasleen kritika lanak autorearen lanaren korolario naturalak direlako. Ana Urkiza

Kanpaina barruan aldarrikatu zuen, Angelun hain zuzen ere, bere **alderdiak** irabazitakoan, Euskal Departamendua eginen zela. Hasier Etxeberria

Alderdi baten alde agertzea ordu nuke, pentsatu zuen. Elena Touyarou

Oso goiz hasi ziren bertako hizkuntzak erabiltzen eta lantzen ekialdeko zenbait **alderditan**. Koldo Zuazo

Beste batzuetan, ordoki handi oparoak ziren, landaredi trinkoz estalitako **alderdiak**, tarteka-tarteka aintzira txiki baten ispilu argiak urdindutakoak. Karlos Zabala

Tira, **alderdi** hartan bizi zara, beraz, Wilmarth andereñoa? Mirentxu Larrañaga

Kontua da -bigarrengoz saiatu zen emakumea elkarrizketa eraman nahi zuen **alderdira** eramaten-, zuk dakizun bezala, gure ahizpa haurdun geratu eta aitak etxetik bidali zuenean, biak elkarrekin joan zirela, hau da, Amaia eta Garbiñe batera joan zirela. Aitor Arana

Amak, berehala, aitaren **alderdia** hartu zuen eta erran zidan: Daniel Landart

Edozein artistaren bizitzak bi **alderdi** horiek dauzka: artista ezagutzen du mundu guztiak, bera dabil jende artean, bera da txalotua, omendua, berea da kulturari egindako aportazioaren meritua. Pako Aristi

Hemen, nire bakardadean, nire basoen erdian, bizitzaren zenbait **alderdi** ulertu nahian gogoeta egitean, ez bainuen beste ezer asko pentsatzeko, ibili izan diat ideia hori buruan. Xabier Olarra

Eta zer esaten digu beste **alderdiak**? Iñaki Segurola

Nahiago zuen mendian etzanda erleen burrunba entzun, **alderdiko** bilerarik erabakigarriena baino. Markos Zapiain

Orriotan ETAren historiaren **alderdi** bat kontatzen da; geroago ETA VI.aren garaia deitu zaiona. Rafa Egiguren

Sukaldearen eta kafetegiaren beste **alderdiak** arruntak ziren, merke-zuhur antzean egindakoak, baina familiartekotasun eta konfiantza giroa ematen zuten. Iñaki Zabaleta

Hasteko, **alderdiok**, Victor Hugok ez ditu gaur topikoa den legez balioetsi, liberalak progresista bezala eta karlistak erreakzionarioak. Koldo Izagirre

Halaxe, bada, bere orokortasuna galdurik, **alderdi** baten, klase baten, aberri baten, estatu baten ongiak unibertsaltasun hori eskuratu nahi izan zuen, gaiztotzat zuen guztiaren aurkako borroka zuritzeko. Felipe Juaristi

Eta mundu honetan inork, inortxok ere ez zuen orri batean zerrendarik egingo bere alabaren atributuekin, animalientzako **alderdian**. Anton Garikano

Orobat, Armadaren laguntzaz, Aralar, Urbasa eta Artikutzako mendiak arakatzen ari dira une hauetan, **alderdiotan** geratzen diren azken taldetxoak desegiteko asmoz... ". Aingeru Epaltza

Txuspok etxeko beste **alderdiak** erakutsi dizkit: komuna konpartitua litzateke. Harkaitz Cano

Izena ematen duzun **alderdiak**, orain zeure buruarentzat, familiarentzat eta negozioetan gastatzen duzunaren halako hamar gastatzera behartuko zaitu. Patxi Zubizarreta

Izan ere, ahanztea hil ala bizikoa daiteke munduko **alderdi** honetan. Xabier Montoia

Alderdiei-eta, mugi daitezela, hitz egin dezatela ezkutuan. Joxerra Garzia

Atalez atal irakurtzen bada, berriz, gehien interesatzen zaizkigun **alderdiak** jorratu ahal izango ditugu. Askoren artean

-Tira, badakik nolakoak diren **alderdiko** handi-mandi horiek: "Familia, Jaungoikoa eta Lagi Zarra". Alberto Ladron Arana

Hainbertzeraino non, horrela segituz gero, behartuko bainau berriz ere abantaila hartzeko baliakizunez serioski gogoeta egitera; zeren ez baitut hain segur ere ezein **alderditan** garait nazan nahi. Jon Muñoz

Erpuruek bortizki jotzen zituzten idazmakinetako teklak, eta paperak **alderdi** batetik bestera zebiltzan, bulegarien urduritasunaz kutsaturik bezala. Pedro Alberdi

Bazekien muga zaintzen zuten haiek zer tenoretan ateratzen ziren ttattolatik, noiz argitzen zuten zein **alderdi** eta xehetasun guziak. Eneko Bidegain

Telebistakoaz gain, Zumarragan zinegotzi eta bere **alderdian** burukide, arnasa hartzeko ere astirik gabe zebilen garai hartan. Joxerra Garzia

Eguzkia 24 orduz behin ateratzen da, baina, denok ikusten dugunez, gauak eta egunak ez dira beti-beti berdinak izaten: batzuetan luzeago, besteetan laburrago, zenbaitetan hotzago, beste batzuetan beroago... gu bizi garen **alderdietan** bederen. Pello Salaburu

Zerua urdin eta garbi beti **alderdi** hartan. Fernando Rey

Honelako arazo batek **alderdi** asko ditu. Juan Martin Elexpuru

Haren bi **alderdiei** erreparatu ondoren, kriseilutzat edo pizgarritzat har dezagun, eta gauza mesedegarritzat beti. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zeren gizarteaz mintzo garenean, gizartea bera ere da zerbait aurpegi eta **alderdi** asko erakusten duena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Alderdi honi dagokionez, lana bereziki metatu zitzaidan otsailetik martxoko hilera iragotzerakoan. Joxan Elosegi

Baina, bizitzaren hainbat **alderditan** bezala, eginkizun hartan ere elkarren osagarri izango zirela pentsatu zuten. Patxi Iturritegi

Aritzearen aritzez, argi ikusten hasi nintzen ordura arte niretzat korapilatsua izan zen auziaren hainbat **alderdi**. Xabier Montoia

Zure **alderdiak**, oker ez banago, indarkeria mota guztiak arbuiatzen ditu. Karlos Linazasoro

- Ba, hik beti haren **alderdia** hartzen dun, emaztekia. Itxaro Borda

Beharrik, neure arimaren **alderdi** hura inoiz gutxitan azaltzen zen. Alberto Ladron Arana

Sei urte lehenago, Albretekoak haren etxea lurrarekin berdinarazi zuen, enperadorearen **alderdia** hautatzeagatik. Aingeru Epaltza

2 (izenondoekin)

Handik pixka batera, determinismo genetikoaren **alderdi** sistematikoak liluraturik, bere obrarik handienari ekin zion, Rougon-Macquart familiaren historia natural eta sozialari. Karlos Zabala

Hala ere, ñabardura batek kezkatzen zuen aita: **alderdi** berriaren izenak, Baas, "Berpizkunde arabiar eta sozialista" alderdia. Juan Kruz Igerabide

Banekizkien ere komandoen **alderdi** on eta tzarrak. Marzel Etxehandi

Maxwell bera oso ongi ohartzen zen gehitze prozesu haren **alderdi** kaxkarrez: koloretako argazkigintzak ez zeukan modurik "argiztapena saihesteko", eta koloreak erremediorik gabe aldatzen zitzaizkion argiaren uhin-luzeraren aldaketen arabera. Xabier Olarra

1999an Öcalan buruzagi kurdua atxilotu zuten turkiar komandoek Nairobin; horrez gain, 2000n PKK **alderdi** independentistak su-etena aldarrikatu zuen; Turkiako gobernua, bestalde, Europar Batasunean sartzeko ahaleginak egiten ari da eta itxura toleranteagoa eman nahi du kanpora begira... Jon Arretxe

Penaz ikusten dut, eta honekin zehazten dut pixka bat goian esandako zerbait, batzuetan **alderdi** abertzaleen eskuetan dauden administrazioekin ere holako gauzak gertatzen direla, ohartu zara horretaz inoiz? Pello Salaburu

Aferak bazuen **alderdi** sinesgarri bat: Henrike Borboikoa, haien fedeari uko eginda ere, inoiz ez zen gelditu protestanteak babestetik. Aingeru Epaltza

Baiki, jendarteak onartzen eta baitaratzen ez duen **alderdi** beltz hori -Txerren, Dionysos, Pan, deabrua, itzala, **alderdi** ilun eta gaiztoa, infernua...-, beragandik milaka urteetan ezkutatzen, baztertzen eta "zabor" bilakatzen saiatu ondoren, berriz ere itzulian da oharkabean, isilka, unibertsal mailan. Jose Angel Irigaray

Bazirudien lana doi bete nahi zuela, gerra irabazi, gainerako larruketa, gerraren **alderdirik** tamalgarriena, ahazturik; edo baztertuxe utzirik. Felipe Juaristi

Deinosia: gauzak beren **alderdi** itsusi edo ankerrenetik ikusteko joera makabroa. Karlos Linazasoro

Irudi jakin baten eta bere hartzaile jakinaren arteko erlazioaren **alderdi** nagusiak horrela aztertu ondoren, irudiaren beraren funtzionamendua ere azter daiteke. Josu

Zabaleta

Horra hor New Yorkeko **alderdi** argiaren zenbait distira. Gotzon Garate

Ez zion batere oniriztten Diogenesen **alderdi** zirikatzaileari, nola egun batean hark "Gizonak, hurbildu! " oihu egin eta gero bere makilaz jo baizituen hara bilduak eta esan: "Gizonei egin diet dei, ez gorotzei". Juan Garzia

Oroimenera ekarri behar, ordea, haren obraren **alderdi** matematikoa. Jon Muñoz

Garai horretan Mussoliniren laguntza izan zuen; 1924an, **Alderdi** Faxistako kide egin zen. Josu Zabaleta

Bai, ondo begiratuta, arriskutsua izan zitekeen norberaren etxean esperimentatzea, inoren aurrean biluztea bezala azken batean, eta karreraren une hartan ez zitzaion zentzuzkoa iruditzen arkitektoari bere **alderdi** pribatuak jendearen begietara ematea. Patxi Iturritegi

Itsasoari buruz poema bat baino gehiago idatzi zuela ekarri zuen gogora, baina itsasoaren narru nabarra pantera batenarekin alderatuz idatzitako lerroen ausardia zela, XX. mendearen amaierako idazle eta kritikarien begietan behintzat, poema haien **alderdirik** goraipagarriena. Juan Luis Zabala

Eta halaxe egin zuen Jules Vernek ere bere pertsonaiekin: munduko **alderdi** arriskutsu haietara bidali, eta haien abenturak eskaini zizkien horrelako istorio bizien egarriz zeuden mendebaleko irakurleei. Karlos Zabala

Noski badituela, beste **alderdi** aipagarri asko, baina hemen ezin luza ni. Patziku Perurena

Politizazio horrek bazuen, hala ere, **alderdi** jostariagorik. Joxerra Garzia

ez nuen nik Studebaker-a aukeratu, Ivyk baizik; kolorearen arabera aukeratu ere (tomatea bezain gorri, haren iritzian, mugurdia bezain gorri, nirean), nik ez bezala kolorea baitzuen berak gustu-irizpide, bost axola **alderdi** teknikoa. Joxe Austin Arrieta

Zolaren inguruan famatutako "naturalismo"ak bizitzaren **alderdirik** arrunt eta hutsalenetan jarria zuen arreta: pertsonaiaren istorio berezia inguruaren indar ezkutuen artean itota gelditzea ekarri zuen gizartearen bilakaera zientifikoki azaldu beharrak. Juan Garzia

Zure graziak **alderdi** ahulenean ezarri ditu enparatuak. Juan Garzia

Bertan **alderdi** arrotzak, bakanak eta bitxiak bakarrik bildu ditut. Gotzon Garate

Egun hartan, Huarte Donibanekoaren pasarte bat eman zion itzulgai Enrikek, izaeraren eta **alderdi** organikoaren, hots, gogoaren eta haragiaren arteko atxikimenduaz. Iñaki Iñurrieta

Baina baditu **alderdi** makurrak ere. Andoni Egaña

Eta ez, gainera, interesgarri **alderdi** metafisiko batetik, guztiz **alderdi** ukigarri eta material batetik baizik. Jon Alonso

Ni oro har kritikoa izaten saiatu naiz, baina betiere interesatu zait batez ere eta bereziki **alderdi** positiboak azpimarratzea. Pello Salaburu

Ez dute ordea **alderdi** makabroa galduko, xehetasun odoltsu higuingarrienak ere argi deskribaturik agertzen baitira. Koro Navarro

Krisi pertsonal horren arazoa, ordea, idazlearen **alderdi** unibertsalak sortzen eta mamitzen zuen: bere filosofiak. Jenaro Garate

Poeren kontakizunek sentikortasunari eragiten diote, haren **alderdirik** senezkoen eta ezkutuenari. Koro Navarro

Hain suturik egon ez banintz, muturrera eginen niokeen irri. '**Alderdi** afektiboak"! Aingeru Epaltza

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta basoan egoera bat juzgatzeko ehiztariak bakarrik duen zehaztasunaz, ohartu ninduan hi hengoen lekutik ezin hiola oreinari apuntatu: kontuan har ezak, une hartan egoera haren ehiza- **alderdiak** gehiago axola zitzaizkidaan giza **alderdiak** baino. Xabier Olarra

Herritartasun **alderditik**, zergak ordaintzen ditugunez, kontsumitzaileoi eskubide batzuk zor zaizkigu. Edorta Agirre

Zer ohorea beretzat, zer garaipena dotrina handiarentzat, azkenean gizakiaren animalia **alderdiarekin** harremanetan sartzea lortzen bazuen, tximino gaixo hari ulertu eta hark berari ulertzea lortzen bazuen! Josu Zabaleta

4 *alderdi anitzeko sistema*

Alderdi anitzeko sistema ezarri, eta alderdi askok desengainua hartu zuten, aurreko sistema itxuraz soilik aldatzen zela ikusita. Berria - Mundua

"Lorpenak» bermatzeaz gain, "horretan soilik gelditu ez» eta **alderdi anitzeko sistema** sendotuko duela esan zuen atzo. Berria - Mundua

5 *alderdi aniztasun*

Aurtengo hauteskundeetan Naderrek parte hartzea komeni zaielako, errepublikanoak **alderdi aniztasunaren** alde daude, baina aurten bakarrik. Berria - Mundua

6 *alderdi bakarreko sistema* *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi)*

Esan daiteke Mendebaldeko gizartean **alderdi bakarreko sistema** politiko batean bizi garela, eta partidu bereko fakzio desberdinei baizik ez diegula botoa ematen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azkenik, 1948. urterako, herrialde guztietan zeuden ezarrita **alderdi bakarreko sistema** politikoa eta ekonomia planifikatua, sobietar ereduari jarraituz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondoko herrietako komunismoaren erorketa izango zen erronka, zaila izango baitzen **alderdi bakarreko sistemari** eustea, eta bozketa askeak saihestezinak izango ziren. ETC-prentsa

Alderdi bakarreko sistemak ez luke Ekialdeko Timorren funtzionatuko. ETC-prentsa

Indarrean dagoen **alderdi bakarreko sistema** edo alderdi anitzeko demokrazia aukeratzeko galdeketa egin dute ugandarrek. ETC-prentsa

Alderdi bakarreko sistema izaten jarraitu du Turkmenistango Errepublikak. ETC-prentsa

Estatu kolpeak, **alderdi bakarreko sistemak** eta Mendebaldetik ezarritako demokrazia parlamentarioaren ajeak pairatu dituzte afrikarrek, haien ezaugarri eta errealitateak ez dituztelako benetan kontuan izan. ETC-prentsa

Txinako Alderdi Komunistaren barnean, gainera, guztiak ez datoz bat Wenekin, eta gauza guztien gainetik defendatzen dute **alderdi bakarreko sistema** , demokraziak ere hutsuneak dituela argudiatuta. ETC-prentsa

Garai horretan, **alderdi bakarreko sistema** zegoen, eta, beraz, hutuen MDR-Parmehutuk zuen boterea. ETC-prentsa

1966an **alderdi bakarreko sistema** eta 1972an estatu unitarioa ezarri zituen. 1982an dimititu zuen. ETC-entziklopedia

7 *alderdi-bakartasun* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Alderdi-bakartasuna edo unipartidismoa alderdi legal bat daukan alderdi-politiko sistema bat da. Alderdi politiko asko baina guztiek baten nagusitasuna onartu behar dutenean **alderdi-bakartasuna** ere da. ETC-entziklopedia

8 *alderdi bereko su* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Su adiskidetsua edo **alderdi bereko sua** guda batean alderdi bateko erasoak alderdi bereko kideen aurka suertatzen da, gehienetan errore batengatik. ETC-entziklopedia

9 *alderdi bitasun*

PPk eta PSOEk nahi duten **alderdi bitasuna** apurtzea da gure asmo nagusia. Berria - Euskal Herria

10 *alderdi erradikal*

Alderdi Sozialistaz gain, PRSD **alderdi erradikala** (liberala), PPD Demokraziaren Aldeko Alderdia (sozialdemokrata) eta PDC Alderdi Demokrata Kristaua daude Hitzarmena koalizioan. Berria - Harian

Ezkerreko **alderdi erradikalak** ez du begiko zikina baino gehiago euskal departamendurik nahi eta alderdi desberdinetako kontseilari orokorrak publikoki alde agertzeak ulitxetan ezartzen du. Herria

Ezkerreko **alderdi erradikalak** ez du Ipar Euskal Herrian aurkezteko ohitura handirik. Berria - Euskal Herria

11 *alderdi giltzarri*

Hala ere, presidente ohiak berak argi utzi du bi aldeen proposamenak aztertuko dituela: "**Alderdi giltzarria** gara. Berria - Mundua

EBBko lehendakariaren aburuz, EADk Estrasburgoko Legebiltzarrean "erdian dagoen espazio politikoa bete nahi du, hain zuzen ere sozialisten eta kontserbadoreen artean dagoen espazio politikoa, eta **alderdi giltzarria** izan nahi du». Berria - Euskal Herria

12 *alderdi interesdun*

-Nire ustez, emakume abandonatu baten lekukotasuna ematen duena ezin da berarekin ezkondu, zeren Legeak "**alderdi interesdun** " deitzen baitu. Koro Navarro

13 *alderdi komunista*

Ogino egutegia historialari on batek ikertu beharko luke, ermandade sekretua zen, **alderdi komunista** baino hobeto antolatua. Karlos Zabala

1956an Hungarian herri iraultza bat izan zen, boterean zegoen **Alderdi Komunistak** erroz zapaldu zuena, nahiz hilabete batzuk lehenago Kruschovek Stalinen erailketak eta sarraskiak salatuak zituen dagoeneko XX. Pello Salaburu

Garai hartan gertatu zen **Alderdi Komunistaren** legeztatzea, Francoren heriotza, Gernikako estatutua, Konstituzioa, ikurrina legeztatzea, ETAren aktibitate militar ikaragarria, euskal kultura berpiztea, Parisetik zetorren 68ko maiatzaren mugimendu libertarioa, hippismoa, komunak, bikote harremanak kolokan jartzea... Ana Urkiza

Chavezek gaztetan **alderdi komunistako** jendearekin harremanak izan omen zituen, baina ez dakit, biografia asko asmatzen baita gerora. Pako Aristi

Alderdi komunistakoa zenez, ezagutzen zuen burkide militante asko salatu zuen. Jokin Urain

Italiako **Alderdi Komunistaren** sortzaileetako bat. Fernando Rey

Europako Gizarte Foroak eta **Alderdi Komunistak** manifestazio bana egin zuten Atenasen. Berria - Harian

Seifert eta **Alderdi Komunista**. Berria - Kultura

AD aliantzako kide diren MOIR Langileen Mugimendu Independente eta Iraultzaileko eta **Alderdi Komunistako** zenbait kide, Gustavo Petro buru zutela, Bogotako alkate eta PDIko kide Lucho Garzonen politika kritikatzen hasi dira. Berria - Mundua

Daniel Romestant (PCF): CGTko aurpegi ezaguna da eta baita Ipar Euskal Herriko **alderdi komunistakoa** ere. Berria - Euskal Herria

Alderdi Komunistako kide ohiak dira. Edorta Jimenez

14 *alderdi laborista*

Alderdi Laboristaren Kongresuan. Berria - Mundua

Alderdi Laboristako kideek ere bilera «botuak biltzeko estrategia berri bat» dela salatu dute. Berria - Gaiak

Film honetan, Blair **Alderdi Laboristako** lider bilakatzen den uneak ditu argitara ekartzen. Berria - Kultura

Edward Brongersman **Alderdi Laboristako** senatari izandakoari hiltzen lagundu zion sendagilearen kontra. Berria - Gaiak

Kadimak 11 ministro izango ditu, **Alderdi Laboristak** zazpi eta Shas judu ortodoxoen alderdiak lau. Berria - Mundua

Blairrek **Alderdi Laborista** eskuinera lerratu du. Berria - Mundua

2001ean Erresuma Batuko **Alderdi Laboristak** 55 diputatu lortu zituen. Berria - Harian

Frantziako Demokraziarako Batasuna, Lituaniako **Alderdi Laborista**. Berria - Euskal Herria

· John Hume SDLP Alderdi Sozial Demokrata **Laboristako** burua eta Bakearen Nobel Sariduna ez zen jardunaldian izan. Berria - Mundua

15 *alderdi liberal*

Quebeceko Asanblea Nazionalean (Legebiltzarra), aldiz, PL **Alderdi Liberala** da nagusi. Berria - Harian

Alderdi Liberaleko buruetako batek. Berria - Harian

Alemaniako **Alderdi Liberaleko** kide eta Barne ministro ohia da Gerhart Baum. Berria - Mundua

FDP Alemaniako **Alderdi Liberalekoa**. Berria - Harian

Bazterturik geratu zen berehala **alderdi liberalaren** egoitzari su emateko proposamena. Koldo Biguri

· Mike German Cardiffeko legebiltzarrean Alderdi **Liberal** Demokratako diputatuen burua da. Berria - Mundua

16 *alderdi nazi*

Handik laster sortu zen eta indartu Hitlerren **alderdi nazia** edo Nazional-sozialista, Versaillesen alemaniar aberriak jasan Diktat itsusia mendeka omen zezakeen alderdi bakarra. Piarres Xarriton

Alemaniako Gobernuak Hitlerren **alderdi naziaren** bertsio berritzat jo du NPD, eta taldea debekatzen saiatu zen iaz. Berria - Mundua

SSa **alderdi naziaren** polizia gisa sortu zen, baina azkenean benetako unitate militarrak osatu zituzten (Waffen-SS) Reichean eta okupatutako lurraldeetan. Urtzi Urrutikoetxea

Alderdi Naziaren armada, nolabait errateko. Alberto Ladron Arana

17 *alderdi politiko*

Betiko zimaur aspergarria zetorrela iritzi zion Rekexok egun hartako edizioari: **alderdi politiko** nazionalistak eta espainolistak elkarri mokoka ari ziren azkenaldi hartan. Joxemari Iturralde

Bertsozale Elkarteak harreman-bideak irekita ditu euskalgintzako erakundeekin, Euskal Herriko erakunde publikoekin, euskal gizarteko **alderdi politiko**, mugimendu eta beste eragileekin eta nazioarte mailako inprobisazio esperientzien protagonista nahiz ikerlariekin. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Azkenik, Aralar-Zutik **alderdi politikoak** 2004ko hauteskundeetarako prestatu kanpainak a-tik z-raino zerrenda osoa egiten du, defendatzen dituzten ideia nagusiak letraz letrako ibilbidera bilduz. Iñaki Arranz

1998an Ardantzaren dokumentuan ere garbi adierazten zen ETArekin ez dela negoziatu behar herri honen etorkizuna; negoziazio politikoa eta herri honen etorkizuna **alderdi politikoei** dagokiela, alderdi guztiei. Berria - Euskal Herria

Alderdi politikoen arteko elkarrizketak hasi dira, baina ez dira bukatu. Berria - Euskal Herria

Ez nintzen ausartu gehiago galdetzera, ez bainuen estutu nahi, gai hura tabu samarra zen-eta klandestinitate-garai haietan; edonor atxilo eramaten zuten laster asko, susmo hutsarekin sarri, eta egurra ematen zioten, nola gainera, eta urtetarako espetxeratu gero, legez kanpoko **alderdi politiko** batean zebilelako, besterik gabe. Juan Kruz Igerabide

Demokraziaren izenean, **alderdi politiko** legal baten zuzendaritza osoa kartzelara sartu. Xabier Montoia

Izan ere, espiritu errepublikazale eta liberala Donostian indartu egin zen, eta, agian horregatik, eta ideologia horren berreskurapenaren sinbolo harturik, elkartu ziren bertan **alderdi politiko** errepublikazaleak (1930), "Donostiako Ituna" delakoa sinatzeko. Askoren artean

Halako gerla hotz batean sartua zen gizarte osoa Frantzian, eliz-gizonek eta fededun gehienek hastiatzen zuten gobernamendua eta meneko zituen ezkerreko **alderdi politikoak**. Michel Oronoz

Telebista, irrati eta egunkari gehienak ez zaudek ETAren kontra zenbait **alderdi politiko** eta kapital handia atzetik dituztelako soilki, enpresa horietan lan egiten duten langileek esaten dutena benetan pentsatzen dutelako baizik, ez harritu. Mikel Hernandez Abaitua

Gaur egungo **alderdi politikoei** erreparatzea aski da, ordea, egitasmo zehatzik gabe ere urrutira irits daitekeela ohartzeko. Joxerra Garzia

Lehenik, "Enbata" **alderdi politikoan** ibili naiz urteetan. Menane Oxandabaratz

18 *alderdi sozialista*

Auzitegi Konstituzionalak emandako ebazpenaren ondoren alderdien arteko harremanetarako "aitzakiarik» ez dagoela gogoratu zuen, eta **alderdi sozialistari** Euskal Autonomia Erkidegorako duen egitasmoa aurkeztea galdegin zion. Berria - Euskal Herria

Onura politikoak lortzeko eta jokaleku berriaren aurrean indartsu agertzeko xedez, **alderdi sozialista** kartzela politika baliatzen ari dela gogor salatu zuen Pernando Barrenak atzo. Berria - Euskal Herria

1947an **Alderdi Sozialista** bitan banatu zen: alde batetik Italiako **Alderdi Sozialista**, Nenni zuena buru, Alderdi Komunistarekiko ekintza-batasuna bultzatzen zuena; eta bestetik, Italiako **Alderdi Sozialista** Demokratikoa, Saragat zuena buru, demokrazia parlamentarioko alderdi tradizionalekin batera lan egitearen aldekoa. Fernando Rey

Alderdi Sozialistarentzat kulturalki Euskal Herria ez da existitzen. Joxe Azurmendi

Elkarrekin hil ziren: sionistak, bundistak, Poloniar **Alderdi Sozialistako** kideak, ukrainar nazionalistak, eta besterik gabe erbesteratu zituztenak, langile falta zegoelako atxilotuak denak. Koro Navarro

Polonia, Lituania eta Errusiako langile juduak elkartuz sortu zen Batasuna edo **Alderdi Sozialista** Judua. Koro Navarro

Kartzelatik irten ondoren, Burgosko epaiketan parte hartutako batzuek Euskadiko Ezkerra sortu zuten; nazionalismotik urrundu, eta **Alderdi Sozialistan** amaituko zuten. Joseba Zulaika

Espainiako **Alderdi Sozialistako** Isidorori aspaldi itzuli zioten ponteko izena. Iñigo Aranbarri

2004. urteko maiatzaren 19an honela mintzatu zen Leongo **alderdi sozialistako** idazkari nagusi Miguel Martinez: "Duela hamalau urte itxi zuten Riañoko presa, Leongo

hegoaldea ureztatzeko eraikia. Edurne Elizondo

Bola goratu egin zela beste aldean ere, eta esate baterako bere beste lagun bat, bere irakaslea izandakoa - "Cesar du izena" - herioaz mehatxatuta zegoela **alderdi sozialistakoa** izateagatik, horregatik bakarrik, eta Cesar zalantzarik gabe pertsona zintzo, progresista eta demokrata zela. Bernardo Atxaga

Duffy jaunak kontatu zion ezen denboraldi batean Irlandar **Alderdi Sozialistaren** bileretara joan izan zela, eta beste inor ez bezalakoa sentitu zela langile edan-gartxu pila baten erdian, kriseilu motel batek argituriko ganbara batean. Irene Aldasoro

19 *alderdi zahar* ik **alde zahar**.

Apur baten deskantsatu ondoren, neure senari jarraituz, hiriko **alderdi zaharrerantz** abiatu nintzen berriz ere, patxadatsu, inon ezer probetxugarririk aurkitzekotan hantxe aurkituko nuelakoan. Jon Arretxe

Eta nik ere, ezinbestean, haien norabide berean jarraitu nuen **Alderdi Zaharrera**, bururik atzera itzuli gabe. Ramon Saizarbitoria

Egun hartan, ordea, bestetan ez bezala, polizia **Alderdi Zaharretik** porturaino sartu zen, jendea mendirantz bultzatzen zuelarik; eta zororen bat harrika hasi zitzaienez, gora egin zuten haiek ere, motoetan batzuek: binaka jarrita, aurrekoa gidari eta atzekoa pilotak tirokatuz. Ramon Saizarbitoria

Zure familiarekin eta sentimenduekin estuki lotutako arrazoiak medio, ez zenuen ikusi benetako abertzaletasuna ez zegoela burgesiak aspalditik erosia zuen **alderdi zaharrean**, gurekin baizik. Xabier Montoia

AEBetako Armadako tankeak mausoleoaren sarreratik zenbait ehun metrotan jarrita zeuden eta Irakeko Poliziak zein Guardia Nazionalak **alderdi zaharrean** sartzen edo handik irteten ziren ibilgailuak arakatzen zituzten. Berria - Mundua

Zisjordanian, Tsahalek erabat inguratu zuen Nabuluseko **alderdi zaharra** eta etxeak banan-banan arakatzeari ekin zion. Berria - Mundua

Gosaldu ondoren, oinez egin zuen hoteletik **alderdi zaharrerako** bidea, eta, udaletxeko plazara iritsirik, handik bertatik beherantz abiatzen zen karrika bakarretik jo zuen lastertxo. Josetxo Azkona

20 *alderdien lege*

Hain zuzen ere, **Alderdien Legea** sustatu zuten foro berean hartu zuten atzo HZren parte-hartzea galarazteko erabakia, Itun Antiterrorista deitzen dutenaren baitan. Berria - Euskal Herria

Alderdien Legearen kontra egitea leporatu dio Raxoik Zapaterori. Berria - Euskal Herria

21 *giltzadura alderdi* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Giltzadura-alderdia izan zen: batzuetan -1931n eta 1936an-, ezkerrarekin bat egin zuen; beste batzuetan, berriz, abertzaleekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Giltzadura alderdia parlamentu legebiltzar eta beste demokrazia ordezkatzaile ordezkaritza-organo demokratikoetan gehiengoak osatzean erabakiorra izan daitekeen alderdi politikoa da. ETC-entziklopedia

22 *kontrako alderdi*

Bigarren lekukoa horrela errefusatuta, **kontrako alderdikoak** ezin zituen aurkeztu beste batzuk, eta galdu egiten zuen prozesua; baina borroka-bahirik ez zegoenean .218, aurkez zitezkeen beste lekuko batzuk. Iñaki Iñurrieta

Baina badirudi zerebroaren alde bakoitzak **kontrako alderdia** gobernatzen duela, Natura halakoxe apetatsua baita. Ramon Saizarbitoria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

agintean den alderdi (8); **alderdi abertzale** (52); **alderdi abertzale guztiek** (9); **alderdi abertzaleak** (38); **alderdi abertzalearen** (9); **alderdi abertzaleei** (27); **alderdi abertzaleek** (64); **alderdi abertzaleen** (48); **alderdi abertzaleen artean** (12); **alderdi abertzaleen arteko** (15); **alderdi asko** (12); **alderdi askok** (9); **alderdi askoren** (8); **alderdi askotatik** (14); **alderdi autonomistak** (8); **alderdi bakarra** (32); **alderdi bakoitzak** (47); **alderdi bakoitzak bere** (22); **alderdi bakoitzaren** (17); **alderdi bakoitzeko** (9); **alderdi barruan** (32); **alderdi barruko** (28); **alderdi bat** (114); **alderdi bat baino** (8); **alderdi bat ere** (8); **alderdi batean** (21); **alderdi batek** (50); **alderdi batekin** (8); **alderdi bateko** (14); **alderdi baten** (62); **alderdi batetik** (11); **alderdi bati** (11); **alderdi batzuek** (30); **alderdi batzuekin** (15); **alderdi batzuen** (11); **alderdi batzuetako** (11); **alderdi batzuetan** (21); **alderdi batzuk** (48); **alderdi berean** (9); **alderdi bereko** (15); **alderdi berekoak** (14); **alderdi berri** (29); **alderdi berri bat** (15); **alderdi berria** (31); **alderdi berriak** (20); **alderdi berriaren** (16); **alderdi bezala** (10); **alderdi biak** (12); **alderdi demokrata** (29); **alderdi demokratak** (31); **alderdi demokratako** (22); **alderdi demokrataren** (29); **alderdi demokratiko** (67); **alderdi demokratiko unionista** (9); **alderdi demokratiko unionistak** (15); **alderdi demokratiko unionistako** (13); **alderdi demokratikoa** (14); **alderdi demokratikoak** (16); **alderdi demokratikoaren** (8); **alderdi demokratikoko** (17); **alderdi edo** (32); **alderdi eguna** (13); **alderdi egunean** (9); **alderdi erlijioso** (15); **alderdi erradikalak** (8); **alderdi errepublikanoa** (14); **alderdi errepublikanoak** (22); **alderdi errepublikanoaren** (21); **alderdi errepublikanoko** (29); **alderdi eta** (206); **alderdi eta eragile** (24); **alderdi eta eragileen** (8); **alderdi eta erakunde** (15); **alderdi eta gizarte** (9); **alderdi eta sindikatu** (10); **alderdi gehienak** (16); **alderdi gehienek** (59); **alderdi gisa** (20); **alderdi guziak** (9); **alderdi guztiak** (99); **alderdi guztiei** (52); **alderdi guztiek** (139); **alderdi guztiek parte** (14); **alderdi guztiekin** (46); **alderdi guztiekin hitz** (9); **alderdi guztien** (94); **alderdi guztien artean** (13); **alderdi guztien arteko** (23); **alderdi guztietako** (45); **alderdi guztietako ordezkariak** (13); **alderdi guztietan** (16); **alderdi guztietatik** (8); **alderdi handi** (8); **alderdi hartan** (15); **alderdi hau** (19); **alderdi hauek** (10); **alderdi honek** (10); **alderdi honen** (9); **alderdi honetako** (9); **alderdi honetan** (18); **alderdi hori** (68); **alderdi horiei** (8); **alderdi horiek** (68); **alderdi horien** (16); **alderdi horietako** (12); **alderdi horrek** (63); **alderdi horren** (32); **alderdi horretako** (34); **alderdi horretan** (14); **alderdi horretatik** (20); **alderdi horri** (8); **alderdi hortako** (9); **alderdi hura** (11); **alderdi independentista** (14); **alderdi independentistako** (12); **alderdi interesak** (19); **alderdi interesen** (11); **alderdi irailtzaile** (11); **alderdi islamikoak** (8)

alderdi jakin (12); **alderdi jeltzalea** (51); **alderdi jeltzalea eta** (16); **alderdi jeltzaleak** (79); **alderdi jeltzalean** (8); **alderdi jeltzalearen** (37); **alderdi jeltzaleari** (12); **alderdi jeltzaleko** (17); **alderdi jeltzalekoak** (8); **alderdi karlistak** (8); **alderdi komunista** (56); **alderdi komunista eta** (9); **alderdi komunistak** (52); **alderdi komunistako** (62); **alderdi komunistako kide** (14); **alderdi komunistaren** (27); **alderdi kontserbadorea** (13); **alderdi kontserbadoreak** (19); **alderdi kontserbadoreko** (17); **alderdi laborista** (42); **alderdi laboristak** (52); **alderdi laboristako** (66); **alderdi laboristako buru** (10); **alderdi laboristaren** (32); **alderdi laboristari** (10); **alderdi liberal** (15); **alderdi liberala** (8); **alderdi liberalak** (20); **alderdi liberalaren** (8); **alderdi liberaleko** (8); **alderdi nagusi** (10); **alderdi nagusia** (36); **alderdi nagusiak** (36); **alderdi nagusiek** (26); **alderdi nagusien** (17); **alderdi nagusiko** (10); **alderdi nazional** (23); **alderdi nazionalak** (12); **alderdi nazionaleko** (27); **alderdi nazionalista** (31); **alderdi nazionalistak** (27); **alderdi nazionalistako** (14); **alderdi nazionalistek** (8); **alderdi nazionalisten** (8); **alderdi on** (12); **alderdi ona** (17); **alderdi onak** (12); **alderdi politiko** (427); **alderdi politiko bakoitzak** (10); **alderdi politiko bat** (16); **alderdi politiko batek** (11); **alderdi politiko baten** (13); **alderdi politiko eta** (46); **alderdi politiko gehienek** (21); **alderdi politiko guztiak** (13); **alderdi politiko guztiei** (21); **alderdi politiko guztiek** (42); **alderdi politiko guztiekin** (9); **alderdi politiko guztien** (24); **alderdi politiko guztietako** (8); **alderdi politikoa** (15); **alderdi politikoak** (124); **alderdi politikoak eta** (12); **alderdi politikoaren** (10); **alderdi politikoei** (140); **alderdi politikoei dagokie** (8); **alderdi politikoei eta** (13); **alderdi politikoek** (170); **alderdi politikoek eta** (19); **alderdi politikoek ez** (12); **alderdi politikoekin** (39); **alderdi politikoen** (204); **alderdi politikoen artean** (22); **alderdi politikoen arteko** (33); **alderdi politikoen eta** (9); **alderdi politikoetako** (65); **alderdi politikoetako ordezkariak** (11); **alderdi politikoetako ordezkariek** (8); **alderdi politikoetan** (9); **alderdi politikoetatik** (9); **alderdi politikok** (40); **alderdi politikok eta** (9); **alderdi politikoren** (10); **alderdi politikotako** (9); **alderdi popularra** (43); **alderdi popularra eta** (9); **alderdi popularrak** (130); **alderdi popularrak eta** (12); **alderdi popularrarekin** (8); **alderdi popularraren** (61); **alderdi popularrari** (10); **alderdi popularreko** (78); **alderdi popularreko presidente** (11)

alderdi sozial (35); **alderdi sozial demokrata** (15); **alderdi sozialdemokrata** (16); **alderdi sozialdemokratak** (23); **alderdi sozialdemokratako** (21); **alderdi sozialdemokrataren** (9); **alderdi sozialista** (140); **alderdi sozialista eta** (18); **alderdi sozialistak** (266); **alderdi sozialistak eta** (24); **alderdi sozialistako** (139); **alderdi sozialistako buru** (15); **alderdi sozialistako idazkari** (10); **alderdi sozialistan** (8); **alderdi sozialistarekin** (33); **alderdi sozialistaren** (105); **alderdi sozialistari** (79); **alderdi sunita** (12); **alderdi txarra** (9); **alderdi unionista** (53); **alderdi unionista demokratikoak** (11); **alderdi unionista demokratikoko** (12); **alderdi unionistak** (20); **alderdi unionistako** (17); **alderdi unionistako buru** (10); **alderdi xiita** (9); **alderdi xiitako** (10); **alderdi zein** (13); **alemaniako alderdi** (12); **arte alderdi** (8); **atzo alderdi** (26); **badu alderdi** (8); **bai alderdi** (12); **baina alderdi** (39); **baita alderdi** (18); **bat alderdi** (10); **batasuna alderdi** (15); **batuko alderdi** (20); **bere alderdi** (48); **beste alderdi** (237); **beste alderdi bat** (29); **beste alderdi batzuek** (11); **beste alderdi batzuekin** (12); **beste alderdi batzuetako** (9); **beste alderdi batzuetan** (12); **beste alderdi batzuk** (17); **beste alderdi guztiak** (11); **beste alderdi guztiek** (11); **beste alderdi politiko** (12); **bezalako alderdi** (10); **bi alderdi** (150); **bi alderdi horiek** (24); **bi alderdi nagusiek** (8); **bi alderdi nagusien** (11); **bizitzako alderdi** (8); **bizitzaren alderdi** (15); **bost alderdi** (16); **cd v alderdi** (10); **cymru alderdi** (21); **da alderdi** (98); **da alderdi politiko** (8); **dago alderdi** (13); **dagoen alderdi** (11); **dauden alderdi** (17); **dela alderdi** (14); **den alderdi** (51); **die alderdi** (19); **die alderdi politikoei** (8); **dio alderdi** (19); **diote alderdi** (11); **dira alderdi** (35); **diren alderdi** (37); **ditu alderdi** (23); **dituen alderdi** (13); **dituzte alderdi** (13); **dituzten alderdi** (15); **donostia alderdi** (8); **du alderdi** (89); **du alderdi sozialistak** (13); **duen alderdi** (56); **duen alderdi bakarra** (10); **dugu alderdi** (13); **dup alderdi** (65); **dup alderdi demokratiko** (27); **dup alderdi unionista** (33); **dut alderdi** (9); **dute alderdi** (50); **duten alderdi** (67); **duten alderdi politiko** (9); **eaeko alderdi** (9); **edo alderdi** (28); **edozein alderdi** (8); **egin zien alderdi** (14); **egun alderdi** (8); **egungo alderdi** (8); **ere alderdi** (23); **erresuma batuko alderdi** (20); **eskatu die alderdi** (9); **eskatu zien alderdi** (11); **eskoziako alderdi** (55); **eskoziako alderdi nazionalak** (9); **eskoziako alderdi nazionaleko** (21); **eskuin muturreko alderdi** (15); **eskuineko alderdi** (14); **espainiako alderdi** (79); **espainiako alderdi sozialista** (8); **espainiako alderdi sozialistak** (13); **espainiako alderdi sozialistako** (16); **eta alderdi** (542); **eta alderdi guztiak** (8); **eta alderdi guztiek** (8); **eta alderdi horiek** (9); **eta alderdi laboristako** (8); **eta alderdi politiko** (33); **eta alderdi politikoak** (13); **eta alderdi politikoei** (15); **eta alderdi politikoek** (17); **eta alderdi politikoen** (24); **eta alderdi politikoetako** (9); **eta alderdi sozialista** (12); **eta alderdi sozialistak** (18); **eta alderdi sozialistaren** (15); **eta beste alderdi** (23); **eta oposizioko alderdi** (11); **eta pp alderdi** (12)

europako alderdi (80); **europako alderdi popularrak** (14); **europako alderdi popularreko** (13); **euskadiko alderdi** (9); **euskal alderdi** (95); **euskal alderdi eta** (17); **euskal alderdi gehienek** (10); **euskal alderdi politiko** (10); **euskal herriko alderdi** (71); **eusko alderdi** (41); **eusko alderdi jeltzalea** (9); **eusko alderdi jeltzaleak** (19); **euzko alderdi** (23); **euzko alderdi jeltzaleak** (8); **ez alderdi** (17); **ez beste alderdi** (30); **ez da alderdi** (10); **ezkerreko alderdi** (57); **fein alderdi** (23); **fein alderdi errepublikanoko** (12); **frantziako alderdi** (27); **frantziako alderdi sozialistako** (9); **gainerako alderdi** (33); **gainontzeko alderdi** (14); **galiziako alderdi** (11); **hainbat alderdi** (85); **hainbat alderdi eta** (12); **hainbat alderdi politikok** (19); **haren alderdi** (14); **herriaren alderdi** (14); **herriko alderdi** (75); **herriko alderdi politiko** (16); **hiru alderdi** (44); **hori alderdi** (17); **horretan alderdi** (9); **ia alderdi** (8); **iparraldeko alderdi** (15); **irakeko alderdi** (32); **irlanda iparraldeko alderdi** (9); **israelgo alderdi** (10); **italiako alderdi** (13); **kataluniako alderdi** (79); **kataluniako alderdi popularreko** (10); **kataluniako alderdi sozialista** (9); **kataluniako alderdi sozialistak** (12); **kataluniako alderdi sozialistako** (21); **kdp kurdistango alderdi** (11); **kurdistango alderdi** (17); **lau alderdi** (21); **legebiltzarreko alderdi** (19); **legezko alderdi** (8); **muturreko alderdi** (18); **nafarroako alderdi** (24); **nagusia alderdi** (8); **nahi du alderdi** (8); **nahiz alderdi** (9); **nahiz eta alderdi** (8); **oposizioko alderdi** (68); **oposizioko alderdi guztiek** (8); **oposizioko alderdi nagusiak** (12); **orain alderdi** (11); **ordezkaritza duten alderdi** (12); **osatzen duten alderdi** (16); **plaid cymru alderdi** (20); **politikoa alderdi** (8); **pp alderdi** (91); **pp alderdi popularra** (13); **pp alderdi popularrak** (33); **pp alderdi popularraren** (17); **pp alderdi popularreko** (16); **ps alderdi** (12); **psc alderdi** (9); **psc kataluniako alderdi** (30); **psoe alderdi** (22); **psoe alderdi sozialistak** (10); **psoe espainiako alderdi** (30); **sdlp alderdi** (27); **sdlp alderdi sozial** (10); **serbiako alderdi** (31); **serbiako alderdi sozialistako** (8); **sindikatu eta alderdi** (9); **sinn fein alderdi** (23); **snp eskoziako alderdi** (22); **soilik alderdi** (9); **spd alderdi** (19); **udaleko alderdi** (8); **ulstergo alderdi** (14); **ulsterko alderdi** (19); **uup ulstergo alderdi** (11); **uup ulsterko alderdi** (12); **v alderdi** (10); **zein alderdi** (22); **zen alderdi** (39); **zenbait alderdi** (44); **zien alderdi** (36); **zien alderdi politikoei** (11); **zion alderdi** (26); **zion alderdi sozialistari** (10); **zioten alderdi** (8); **ziren alderdi** (21); **zituen alderdi** (15); **zituzten alderdi** (8); **zuen alderdi** (78); **zuen atzo**

alderdi (8); zuten alderdi (33)

alderdia da (29); alderdia dela (13); alderdia ere (12); alderdia eta (36); alderdia ez (24); alderdia sortu (11); alderdia utzi (14); alderdiak ados (9); alderdiak atzo (11); alderdiak bat (8); alderdiak bere (22); alderdiak dira (9); alderdiak ere (49); alderdiak eta (45); alderdiak ez (42); alderdiak ez du (9); alderdiak ez duela (10); alderdiak izan (9); alderdiak legez (9); alderdian eta (9); alderdian sartu (8); alderdiaren alde (9); alderdiaren babesa (9); alderdiaren baitan (12); alderdiaren barruan (32); alderdiaren batasuna (13); alderdiaren buru (13); alderdiaren buruzagitza (11); alderdiaren egoitzan (12); alderdiaren izenean (8); alderdiaren jarrera (14); alderdiaren zuzendaritza (8); alderdiari eta (9); anv alderdiak (15); aralar alderdiak (23); ate alderdiak (8); batasuna alderdia (15); batasuna alderdiak (41); batasuna alderdiaren (25); berdeak alderdiak (14); bere alderdia (51); bere alderdiak (121); bere alderdiak ez (14); bere alderdian (15); bere alderdiaren (57); bere alderdiarentzat (9); bere alderdiari (12); beste alderdiak (26); bi alderdiak (72); bigarren alderdia (11); da alderdiak (8); da alderdiaren (8); dagoen alderdia (9); den alderdia (16); den alderdiak (10); diren alderdiak (9); ditu alderdiak (12); du alderdiak (21); du alderdiaren (12); duen alderdia (20); duen alderdiak (11); duten alderdiak (23); eae anv alderdiak (15); eaj alderdiak (8); eb berdeak alderdiak (9); eskuin muturreko alderdiak (9); eskuineko alderdiak (10); eta alderdia (14); eta alderdiak (25); eta alderdiaren (38); eta bere alderdiak (10); euskal alderdiak (9); ezkerreko alderdia (12); ezkerreko alderdiak (23); gainerako alderdiak (15); gure alderdia (9); gure alderdiak (9); haren alderdia (9); herri alderdiak (14); hiru alderdiak (15); kadima alderdiak (12); kongresuaren alderdiak (10); kurdistango langileen alderdia (10); kurdistango langileen alderdiaren (8); langileen alderdia (12); langileen alderdiak (10); langileen alderdiaren (9); lehen alderdia (8); likud alderdiak (8); muturreko alderdiak (11); oposizioko alderdiak (16); osatzen duten alderdiak (8); pp alderdiak (16); psoe alderdiak (9); rpr alderdiaren (10); udf alderdiak (10); ump alderdiak (15); ump alderdiaren (18); zituen alderdiak (9); zuen alderdia (17); zuen alderdiak (25); zuen alderdiaren (11); zuen bere alderdia (8); zuen bere alderdiak (23); zure alderdiak (8)

alderdiei eta (21); alderdiek egin (9); alderdiek ere (27); alderdiek espainiako (11); alderdiek eta (42); alderdiek ez (43); alderdiek ez dute (23); alderdiek osatzen (13); alderdiekin batera (12); alderdiekin bilduko (8); alderdiekin eta (14); alderdiekin hitz (8); aralar alderdiei (8); batzarre alderdiek (11); beste alderdiei (26); beste alderdiek (60); beste alderdiekin (29); bi alderdiei (14); bi alderdiek (87); dauden alderdiek (12); die alderdiei (8); diren alderdiek (8); dituzte alderdiek (12); dute alderdiek (21); dute bi alderdiek (10); duten alderdiei (15); duten alderdiek (69); duten alderdiekin (13); ea alderdiek (9); eaj alderdiek (8); eskatu zien alderdiei (9); eta alderdiei (10); eta alderdiek (34); eta aralar alderdiei (8); eta batzarre alderdiek (11); eta ea alderdiek (8); eta eaj alderdiek (8); eta pp alderdiek (8); eta zutik alderdiek (8); euskal alderdiei (18); euskal alderdiek (31); euskal alderdiekin (8); eusko jaurlaritzako alderdiek (9); ezkerreko alderdiek (25); gainerako alderdiei (20); gainerako alderdiek (29); gainerako alderdiekin (17); gainontzeko alderdiei (8); gainontzeko alderdiek (25); gainontzeko alderdiekin (8); hiru alderdiek (50); jaurlaritzako alderdiek (11); kataluniako alderdiek (9); oposizioko alderdiek (42); osatzen duten alderdiek (28); pp alderdiek (8); zien alderdiei (17); zuten alderdiek (16); zuten hiru alderdiek (9); zutik alderdiek (8)

alderdien artean (130); alderdien arteko (311); alderdien arteko akordioa (14); alderdien arteko elkarrizketa (44); alderdien arteko elkarrizketak (10); alderdien arteko mahaia (17); alderdien arteko mahaiaren (8); alderdien babesa (10); alderdien batasuna (9); alderdien esku (9); alderdien eta (23); alderdien interesak (13); alderdien jarrera (9); alderdien legea (253); alderdien legea bertan (39); alderdien legea eta (18); alderdien legea ez (8); alderdien legea indarrean (10); alderdien legeak (46); alderdien legean (12); alderdien legearekin (10); alderdien legearen (77); alderdien legearen aurka (10); alderdien legeari (26); alderdien legez (15); alderdien mahai (20); alderdien mahaia (177); alderdien mahaia eratzea (10); alderdien mahaia eratzeko (19); alderdien mahaia osatzea (11); alderdien mahaia osatzeko (21); alderdien mahaiak (19); alderdien mahaian (37); alderdien mahaiaren (43); alderdien mahaiari (18); alderdien sostengua (8); alderdietako bat (8); alderdietako buruzagiek (9); alderdietako kideek (8); alderdietako ordezkariak (26); alderdietako ordezkariek (31); alderdietako ordezkariekin (10); baina alderdien (8); beste alderdien (27); beste alderdietako (13); bi alderdien (76); bi alderdien artean (15); bi alderdien arteko (32); bi alderdietako (41); da alderdien (33); da alderdien arteko (9); den alderdien (10); dira alderdien (12); diren alderdien (9); du alderdien (23); duen alderdien (10); duten alderdien (47); duten alderdien artean (8); duten alderdietako (18); edo alderdien (9); ere alderdien (10); eta alderdien (126); eta alderdien arteko (26); eta alderdien legea (18); eta alderdien legearen (8); eta alderdien mahaia (8); eta alderdietako (10); euskal alderdien (32); euskal alderdien artean (13); euskal herriko alderdien (10); ezkerreko alderdien (17); gainerako alderdien (9); gainerako alderdietako (9); herriko alderdien (10); hiru alderdien (27); hiru alderdien arteko (8); hiru alderdietako (9); oposizioko alderdien (14); osatzen duten alderdien (26); osatzen duten alderdietako (11); zuen alderdien (19); zuen alderdien legea (9)

alderdik eta (12); bi alderdik (11); hainbat alderdik (40); zenbait alderdik (19)

---

alderdianitz *izond* alderdi asko dituena.

"Euskal Herriko lurralde esparru guztietan elkarrizketarako eta parte-hartze institucional, politiko eta sozialerako foro **alderdianitzak** sustatu eta sostengatzeko" konpromisoa hartzen du EAJk, "gatazka politikoaren blokeoa gainditu eta akordioa lortzeko" helburuarekin. Berria - Euskal Herria

Herritarren konpromiso zehatz eta jendetsua, desadostasun politikoarentzat konponbide alternatiba eta hori gauzatzeko tresna zehatza: elkarrizketa **alderdianitzerako** mahaia. Berria - Euskal Herria

---

alderdiburu *iz* alderdi politiko baten burua.

Hainbat gobernuburu edo **alderdiburu** ez ote da bihurtzen historiako irakasle? Aparatoek ez ote dute tresna politiko bezala erabiltzen historia? Berria - Kultura

Bai, zinez lotsagarria da bestenaz eskuinburuko **alderdiburu** hori diolarik gerla denboran alemanek etzutela, Frantzian nagusi handi egon ziren lau urte heietan, ardura erraiten den bezenbat larderia agertu! Herria

Eskualde hortan, Jean-Marie Le Pen eskuin muturreko **alderdiburuak** aspaldian errana zuen hautagai izanen zela. Herria

Bixtan da Robert Hue komunixten **alderdiburua** arrunt baztertua bezala gelditzen dela partida hori hola galdurik. Herria

Alderdian goiti ari, Marine Le Pen, **alderdiburuaren** hirugarren alaba, larderia handiko emaztea emaiten duena. Herria

Deputatuen aintzinean, bi **alderdiburu** nagusiak ez dira elgarri dena ele goxo arizanak joanden egunean! Herria

Egun hotan, eztabadak berriz piztu dira, Nicolas Sarkozy eskuindar **alderdiburuak** lege berri zerbait nahi bailuke pasarazi gauza asko kanbiatuz eta "quota" delako batzu finkatuz laneko segida baten menturan jin nahi luketen estranjerentzat. Herria

Zentro-eskuinean sailkatu nahi duen talde politiko honetara hurbildu dira, halaber, Alderdi Laboristako hiru burukide, hauen artean Shimon Peres **alderdiburu** ohia. Berria - Mundua

Galtzen badu, ainitz galduko du bestalde ere luzaz komunixten **alderdiburu** egona den politikari horrek. Herria

Dena den, Chirac-ek onartu omen du Sarkozy hautagai izaitea **alderdiburu** jartzeko. Herria

François Bayrou airez-aire hautetsi dute aintzina segi dezan **alderdiburu** karguan. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

a errazti alderdiburuak (3); **alderdiburu kargua** (3); **alderdiburua eta** (3); **begoñ hollande alderdiburua** (3); **horren alderdiburu** (4)

---

alderdigabe *izond* alderdi politiko batekoa ez dena.

Gero, halako presondegi hertsian izanagatik gure Jauna, bi urtez luzatu da haren auziaren hastapena eta, egin dute ere, Aita Sainduak ez zezan, ez igor, ez izenda, bere ustez susmogabeko eta **alderdigabeko** epaile den herritarrik edo atzerritarrik, horrelako kasuetan Erromako Aulki Sainduak egin ohi duen bezala. Piarres Xarriton

---

alderdigabeko *izlag* alderdi politiko batekoa ez dena.

Gai guztietarako legeak ematea ezina dela eta, alderdioi eskaini egiten die magistratu publikoa, halako arbitro ongitsu eta **alderdigabea**; horren ebatziak eragozten du haien arteko borroka eta onuragarriago gertatzen zaie alderdiei ebatzi hori auzi luzexka baino, horren ondorioak eta bukaerak aurreikustezinak baitira. Andres Urrutia

---

alderdika 1 *adlag* alderdien arabera.

Hola, **alderdika** zatikatzen baldin bada, eta norbaitek pentsatzen baldin badu: "Hau ez duk abertzalea", ez baldin bada arrunt haren ikusmolde berbera... Menane Oxandabaratz

2 ***alderdikako*** *izlag* alderdi politikoen araberakoa.

Izan ere, Gipuzkoako Batzar Nagusien **alderdikako** osaketari erreparatuz gero, EAJ, EA, EB eta Aralarrek 31 batzarkide dituzte eta, ondorioz, PSE-EEko edo PPko batzarkideren batek alde bozkatu behar izan zuen gutxienez. Berria - Euskal Herria

---

alderdikari 1 *izond* alderdikeriaz aritzen dena.

Legebiltzarrean berean entzun dira solas **alderdikariak**, ateraldi batzu arras gogorrak, ez batere baketiarrak. Herria

Batzuk biziki maite zutena, holako gizon balios guti izaiten dela, eta beste batzuk aldiz arrunt begietan hartua, arrunt **alderdikaria** zela eta arrunt maltzurra. Herria

Egiazko abertzalea edo Euskal Herrizalea zen bainan ez **alderdikaria**. Herria

Ez dut bada uste aurkituko den legelariric, zientzia bezainbat kontzientzia baduenik eta, horiek guztiak bere begiz ikusi-eta ukatzen ahalko duenik, zinez **alderdikari** ez den jende guti izanen dela errateko on litekeela Aita Sainduak hau ez bere gain hartzea, baina Espainian berean epai dadin uztea. Piarres Xarriton

"Ista"-rekirako hitz horiek beti pixka bat **alderdikariak** kausitzen ditut. Menane Oxandabaratz

2 (adizlagun gisa)

Alderdikari ez agertu nahiz hain segur. Herria

---

alderdikeria 1 *iz* ideologia, iritzi, edo alderdi politiko baten aldeko joera gehiegizkoa.

Epaile nagusiaren **alderdikeria** salatu dute auzipetuen abokatek. Herria

"Ene desengainua adierazi nahi dut, hauteskundeok egin diren moduagatik, komunikabideen **alderdikeria** eta estatu baliabideen erabilkeria barne", esan zuen NATOko idazkari nagusi Jaap de Hoopek. Berria - Mundua

Euskal Pilotari berezkoen aldekoak batetik, Federazionea bere gazteekin bestetik, trinketak bien artean, eta norat doa horiekin guziekin pilota? Hau ez du **alderdikeria** batek ez besteak salbatuko. Herria

"Alderdikeriak " uzteko eskatu zien alderdiei, eta ohartarazi zuen Navalek ezingo duela nazioarteko merkatuan lehiatu, "publikoa izan ezean". Berria - Ekonomia

Alderdikeriak eta alderdi interesak albo batera utzi behar ditugu, euskararen normalizazioan aurrera egin nahi baldin badugu. Berria - Euskal Herria

Hartu beharreko erabaki politikoak "ausardiaz eta **alderdikeriak** alde batera utzita" hartzeko eskatu zieten alderdi politikoei. Berria - Euskal Herria

Izan ere, **alderdikerien** gainetik adostasunera heltzea lortu dugu. Berria - Harian

Alderdikerien gainetik, norberaren militantzia ideologikoaren gainetik, konponbidearen helburu komun baten premia eta honen aldeko militantziaren lehentasuna aldarrikatzea. Joseba Zulaika

Unibertsaltasunaren izpiritutik egungo aldebakarkeriara (bereziki **alderdikeria** marxistara) zubia egiten ei duelako. Joxe Azurmendi

Baigorriarrak ez ziren horretaratuak eta bekaizgoak, hertsikeriak, **alderdikeriak**, herrak, gainditu zituzten herritarren gogo-bihotzak. Michel Oronoz

Alderdikeriek konponbide politikoa oztopatzen dute. Berria - Euskal Herria

Euskal Herrian, ordea, ez daukagu ez larregizko burokrazia prozesurik ez **alderdikeriek** sortutako bazterketarik. Berria - Kultura

Hura ez da agintariaren **alderdikerian** jausten, ez dio aberatsari behartsuari baino gehiago laguntzen. Elizen arteko biblia

Inolako **alderdikeriarik** gabe adierazi nahi nizuke zenbateraino izutu nauten eta nolakoa izan den nire laborria. Xabier Olarra

Ez du mailegurik lukurreriaz edo interesak kobratzeko egiten; ez du esku hartzen bidegabekerian eta **alderdikeriarik** gabe epaitzen du auzietan. Elizen arteko biblia

Zuetarik bakotxak jakin dezala, ororen kontseilari nagusia izanen naizela, berexkunderik gabe, **alderdikeririk** gabe eta nehor baztertu gabe. Herria

Norbanakoen artean sorturiko legeak, **alderdikeriaren** susmagarri izateaz kanpo, beti atzera-eragingarriak eta ez-zilegiak izango lirateke batzuentzat, baldin eta horien arteko gatazkak lege horien parte-hartzearen aurrekoak badira. Andres Urrutia

ETAren indarkeria ez dezala **alderdikeriaz** erabili eskatu dio Luesmak PPri. Berria - Euskal Herria

Ez du **alderdikeriaz** jokatzen, ez eroskeriarik onartzen. Elizen arteko biblia

Ez duzue **alderdikeriaz** epaituko: entzun txikiei handiei bezala, eta ez izan inoren beldur, Jainkoa baita benetako epailea. Elizen arteko biblia

2 (izenondoekin)

Getxon egindako Biltzar Nagusian bilduriko 350 udal hautetsi inguruk Udalbiltza berrantolatzeko konpromisoa berretsi dute, eta **"alderdikeria** politikoak" alde batera uzteko eskatu dute. Berria - Euskal Herria

18/98 auziaren epaiketak hiru egun bete dituenean, epaimahaia errefusatzea erabaki dute defentsako abokatuek, **"alderdikeria** nabarmenez" jokatzen ari delakoan. Berria - Harian

Batasunaren zein Elkartzen-en ustez, **"alderdikeria** hutsean" oinarritu da PP eta PSE-EEren arteko ituna. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdikeria eta (6); **alderdikeria salatu** (4); **alderdikeria salatu dute** (3); **alderdikeriak alde** (15); **alderdikeriak alde batera** (15); **alderdikeriak bazterrerat** (4); **alderdikeriak baztertu** (3); **alderdikeriarik gabe** (6); **alderdikeriaz erabili** (3); **alderdikeriaz erabiltzea** (3); **alderdikeriaz ez** (3); **alderdikeriaz jokatu** (5); **alderdikeriaz jokatzea** (14); **alderdikeriaz jokatzea egotzi** (3); **alderdikeriaz jokatzen** (7); **alderdikerien gainetik** (13); **du alderdikeriaz** (3); **eta alderdikeria** (5); **eta alderdikeriak** (6)

---

alderdikide 1 *izond* alderdi politiko berekoa.

Pazkoa iritsi zen: udalerriko eta auzo herrietako handi-mandi guztiak egoitzan bildurik zeudela, Peppone izerdi galantak ari zen botatzen azaltzeko diputatu **alderdikideek** oso ondo egin zutela 7garren artikuluari baietza eman ziotenean. Koldo Biguri

Eta nik ere ez nian usteko horretxetan ikusiko nuenik gure lehen herritarra, alkate **alderdikidea**... Koldo Biguri

2 (izen gisa)

Eta non zeuden, baina, bostehun edo mila tribunakide, **alderdikide**, herrikide haiek guztiak? Karlos Linazasoro

"Zilegi da oso liburu batek Imanol Murua bezalako gizon baten eredua jasotzea; bai politikari, bai **alderdikide** gisa, baina pertsona bezala bereziki", hasi zen Garaikoetxea. Berria - Euskal Herria

Paisley baino baikorrago agertu zen haren **alderdikide** Peter Robinson. Berria - Harian

Xedapenaren gurasoetako batek, Sanzen **alderdikide** Del Burgok, ordea, berean jarraitzen du. Berria - Euskal Herria

Bermeoko **alderdikideak**, "erratuta zaude" esanaz erantzun zion Erraztiri, Goienetxearen arabera. Berria - Euskal Herria

Likudeko **alderdikide** eta enpresaburu David Appeli 1999an negozioetan legez kanpo laguntzea leporatzen diote Sharoni. Berria - Mundua

Bere senarra bai, **alderdikidea** da, bere familia tradizioz izan da, baina zuhurtziaz jokatu beharrean arazotik at utzi genuen. Migel Angel Mintegi

Denek badakigu aspaldian etsairik haundiena dela zure ondoan duzun "adiskidea", bereziki **alderdikidea** delarik. Herria

Idazleak eta euskara zerabilten **alderdikide** gehienak batasunaren aldekoak izan arren, eta nahiz eta batasunaren beharra eta batasunaren onurak zuzen eta egoki erakutsi -Eleizalderen eta Belaustegigoitiaren txostenetan, bereziki-, aurka agertu zen Alderdi Jeltzalearen zuzendaritza. Koldo Zuazo

Baina **alderdikide** hauen iritziak gorabehera, euskararen batasunaren aurkakoa izan zen EAJren jarrera ofiziala. Koldo Zuazo

- **Alderdikideok**, herritarrok! -oihukatu zuen Pepponek-. Koldo Biguri

Gero, halako batean, Peppone **alderdikidea** heldu zen bere estatu nagusiaz lagundurik. Koldo Biguri

Eskuko eskailera bana erabili behar da solairu batetik bestera igotzeko: ikusten al duzu, ene **alderdikide**, kanpaitokiko ezkerreko leiho handi hartatik ateratzen den hori? Koldo Biguri

Alderdikideen %40 emakumeak izan behar dutela esan duen lehen taldea izan gara. Berria - Mundua

Rodriguez Zapaterok **alderdikideen** sostengua duela jakinarazi zuen. Berria - Mundua

Bushen **alderdikideek** kontrolatzen dute Kongresua, baina atondu duten txostenak notarik txarrena eman dio Gobernuari "nazioa babesteari dagokionez". Berria - Mundua

Atzo goizeko Zapateroren mintzaldiak, baina, bere **alderdikideak** asebete zituen. Berria - Harian

Halaber, bilerara "espiritu eraikitzaileaz eta zuhurtziaz" joango dela esan zien Raxoik **alderdikideei**. Berria - Euskal Herria

Foro berean, hitz gutxi batzuk izan zituen UMPko buru Nicolas Sarkozyk bere **alderdikidearentzat** : CPErekin "sendo" jokatu behar dela uste du, "baina gehiegikeria eta zurruntasunik gabe". Berria - Ekonomia

Horietako berrogei Oposizioko **Alderdikide** izendatu zituen eta bere Lehen Ministroari agindu zion haiei erakusteko erregearen edozein erabakiri aurka egiteko eginbeharra. Xabier Olarra

Gero bakoitxa joan daite bere lagünekin edo **alderdikideekin** biltzera, alderdi güzietako abertzaleer beitoa gure kümitü hau. Herria

Deus ez obratzeko gutiziarik ez eta, edozein **alderdikideren** lehia politiko pertsonalen jostailu bilakatzen ginen, hizkuntzaren bizi hasperen zalantzakorraren bizkar. Itxaro Borda

3 (izen gisa, izenondo eta izenlagunekin)

Oskarrek ez du zehazki gogoratzen zergatik hasi zen joaten; zerbait komentatuko zion, ziurrenik, **alderdikide** ohiren batek. Iban Zaldua

Unitàn **alderdikide** zintzoak zaudek, baina literaturazaleak dituk denak, kultura duen jendea, eta beti filosofia handiak egiten ditiztek baina garrantzia kentzen zietek gauza hauei, herria ez aztoratzeko. Koldo Biguri

-Justiziak egin ditu krimenari buruzko bere ikerketak -azaldu zuen Pepponek patxadaz-, eta erabaki du berorrek karabineroen buruari idatziz pasatu zion bertsioa ez datorrela bat **alderdikide** erasotuek federazioari emandakoarekin. Koldo Biguri

Hainbat adituren arabera, muturreko **alderdikideengana** zuzendu da eurodiputatua euren sostengua jasotzeko. Berria - Mundua

4 (hitz elkartuetan)

Egungo zuzendaritzarekin pozik ez dagoen **alderdikide** talde batek, tartean, Maria Gracia Iribarren eta Fernando Puras legebiltzarkideak, Carlos Chivite proposatu du PSNko idazkaritzarako. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdikide bat (5); **alderdikide batzuek** (4); **alderdikide batzuen** (3); **alderdikide batzuk** (4); **alderdikide eta** (12); **alderdikide gehiago** (3); **alderdikide guzien** (3); **alderdikide guztiei** (3); **alderdikideak ez** (3); **alderdikideei esan** (3); **alderdikideei esan zien** (3); **alderdikideekin batera** (3); **alderdikideekin erretiratze** (3); **alderdikideekin erretiratze plana** (3); **alderdikideen artean** (6); **alderdikideen aurrean** (4); **alderdikideen iritzia** (3); **bere alderdikide** (7); **bere alderdikideak** (5); **bere alderdikideei** (7); **bere alderdikideek** (3); **bere alderdikideen** (5); **beste alderdikide** (6); **eskatu zien alderdikideei** (3); **eta alderdikide** (4); **eta alderdikideak** (3); **haren alderdikide** (3); **likudeko alderdikideekin erretiratze** (3); **peppone alderdikidea** (4); **peppone alderdikideak** (4); **zenbait alderdikideren** (3); **zien alderdikideei** (4)

---

alderdikoi *izond* alderdi baten interesen eta helburuen mendeko dena.

Confebaskek salatu du **"alderdikoia"** dela ELAk lan merkatuaz egindako txostena. Berria - Ekonomia

Ruche jaunari, **alderdikoia** baitzen, azken horiek besterik ez zitzaizkion interesatzen; zeinek bere izena zuten: Hipokrates Kiosekoa, Teodoro Zirenekoa, Filolaos, Arkitas Tarentokoa. Jon Muñoz

Heu haiz hire lagun hurkoaren aurkako gerra dakarren gaiztoa, eta dena gizon **alderdikoi** baten harropuzkeria ergelagatik. Koldo Biguri

Ezagutzen den erorikorik nabarmenena Tarsoko Pablo harena izan zen, txaketero gisa gogorki maiseatu izan dutena gure egunkari **alderdikoi** zenbaitek. Xabier Olarra

Aldi berean, "gizartetik sortutako ekitaldi pluralak ekitaldi **alderdikoi** ez bilakatzeko" antolaketa "guztion artean adostea" ezinbestekoa dela ohartarazi zuten. Berria - Euskal Herria

Hor jokabide **alderdikoi** dolügarria agertü düe, alde batetik hastean paperean batarzün batetara "Public et Privé tous ensemble" dei egiten düe, eta gero bestetik egintzan parte hartü düenak, CNT eta LAB bezala, bazter etxekitzen dütüe. Herria

Biltzar Nagusietako talde politikoei egoeraren "zeharkako erantzukizuna" izatea leporatu die, "borroka **alderdikoien** ondorioz" ez dituztelako asetzen landako pertsonen beharrak. Berria - Ekonomia

Orain alderdi politikoak asko kezkatzen nauen joko **alderdikoi** bat egiten saiatzen ari dira, hau da, protagonismo kuota bat exijitzen. Berria - Euskal Herria

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko lokarriak ahultzen dituzte interes **alderdikoi** hutsek. Berria - Harian

Txit aitzitik, arrazen teoriak jada oso politizatuak zeuden testuinguruan dihardu, eta modu **alderdikoi** deliberatuan jardun ere. Joxe Azurmendi

Gertakarien indarrez, lege berri horiek aurrekoen aurkako, eta aurrekoekiko **alderdikoi** eta desegileak dira. Andres Urrutia

Valentziera independentea eta erabat bestelako ortografiarekin proposatzen dute, betiere interpretazio **alderdikoi**, ez-zientifiko eta kontraesankor batetik. Berria - Mundua

Lee Jordani kosta egiten zitzaion **alderdikoi** ez izatea. Iñaki Mendiguren

Bildumek nagusi den ikuspegia sendotzen dute gehientsuenetan, eta poesiaren kasuan -garai bateko ospea galduxea duten beste hainbat esparrutan bezala- ikuspegi hori **alderdikoia** eta inkisitoriala izaten da, mugak eta hierarkiak ezartzera oso emana. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdikoia dela (4); **alderdikoia egitea** (4); **alderdikoia egiten** (3); **alderdikoia eta** (4); **alderdikoiak eta** (3); **erabilera alderdikoia** (12); **erabilera alderdikoia egitea** (3); **eta alderdikoia** (5); **interes alderdikoiak** (7); **interes alderdikoien** (3); **jarrera alderdikoiak** (3)

---

alderdikoikeria *iz* alderdikoia denaren jokaera gaizesgarria.

Erantzukizun unibertsal bat ere badago **alderdikoikeria** modu guztiak borrokatzeko. Berria - Harian

---

alderdikoiki *adlag* era alderdikoian.

Urtetako borrokaren bidez eskuratu eta gizarteratutako kontzeptuak eta esparruak **alderdikoiki** erabili. Joxerra Garzia

---

alderditartze *iz* alderditar bihurtzea.

"Balio material" edozein kasu eta gizartetarako absolutuki obligaziozkoak proklamatu nahi izatea, aldiz, eta egunean eguneko borroketan bandera bihurtzea ("biolentziaren kondena" absolutua!), praxian **alderditartze** politiko soila signifikatzeaz gain [...] kulturaren eta historiaren gainetik hegaldatu nahi izate hutsa da: errebelazioarekin ezpai gabe aise egin zitekeena, arrazoimenarekin ez. Joxe Azurmendi

---

alderditu *izond* alderdi politiko batera makurtua den pertsona.

Jakinik, Axularrek zioenaren kontra, ezen ezkerrerat makurtua eta **alderditua** dagoena eskuinerat xuxendua dagoena baino xuxenago egon daitekeela, zeren eta, osaba Joanikotek zioen bezala, ardi beltzak zuriak baino zuriagoak ere izan daitezkeen. Joan Mari Irigoien

---

alderki *iz ipar* alderdi politikoa.

Bizkitartean, lehendakariak nahi luzke halere solasketa batzu akulatu **alderki** guziekin. Herria

Alderki horren lehen segeretario denak, eta kargu hortan delakotz gobernuaren buru ere denak, Jiang Zemin jaunak, bere demisionea eman du gazteago bati karguaren uzteko. Herria

Lege berriarekin, beste guzieri aintzinduko den zerrendak baluke gehiengo on baten segurtatzeko molde hobea bainan hori **alderki** "ttipien" kaltetan. Herria

Duela lau urte bezala, CiU **alderki** abertzalea eta sozialixtak beste guzien aintzinean atera dira, eta elgarren bete. Herria

Alderki Jeltzaleak eta Eusko-Alkartasunak,eskuz-esku jarririk, gehiengo osoa bildu dute Bizkaian eta Gipuzkoan, lehen dira ere Araban. Herria

Aspaldian ez ginuen entzun **alderki** politiko batentzat "populaire" hitza. Herria

---

alderkide *iz ipar* alderdikidea.

Harat joaiten ahalko ez diren **alderkideek** boza postaz emaiten ahalko dute. Herria

---

aldero ik **aldaro**.

---

alderoka ik **aldaroka**.

---

alderotu ik **aldarotu**.

---

alderrai 1 *izond* alde batetik bestera dabilena, nora ezean dabilena. ik **ibildaun**.

Afrikara joan nintzen gero, bake handian igaro nuen gameluak, gazelak eta arabiar **alderraiak** hara-hona dabiltzan basamortu lasai handi hori. Josu Zabaleta

Bere senarrak hemen ibili behar zukeen orain, tabernaz taberna arno eta etzaleku bila, holandar **alderraiaren** antzera. Koldo Izagirre

Hau bezalako hiri moderno, osasuntsu, ongi antolatuan, zakur **alderrai** bat ikustea bera ez da ohikoa. Jon Alonso

Eskean egiteko gure modu horrek, noski, oraindik ederki nabari du, endemas Fraintzi aldetik, errormes bidea aitzaki, sartutako gizajo itxurako jende talde **alderrai**, alproja, engainadore haien kutsu negartia. Patziku Perurena

Ibilera **alderrai** moduko hura -gai bakarrekoa eta gartsua baina lotura eta gunerik gabea- oso berezkoa zuen, nonbait. Xabier Olarra

Kalexka ilun eta estuenak aukeratzen zituen, eta, haietan barrena ausarki zihoala, beraren oin-hotsen inguruan biltzen zen isiltasunak ikaratu egiten zuen, giza irudi isil **alderraiek** ikaratu egiten zuten. Irene Aldasoro

Neure kasa egin nuen ibilbide ekaiztsua, zeru-goiko ilargi **alderraiaren** gerizpean. Mirentxu Larrañaga

Zer maitagarrien lurraldea, edozer gauza gertatzen dena, pentsamendu **alderraiaren** zorabioan! Josu Zabaleta

Japoniako azken ipuin kontalari handia -tradizioak erakusten duen izaera **alderrai** eta bidaiaria gorde zuen azkena- Akinosuke Kwaidan izan zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nor da espiritu **alderrai** hori? Oskar Arana

Espiritu **alderraia**, beste batetik jaurtikia. Oskar Arana

Ezin nituen nire pentsamendu **alderraiak** bildu. Irene Aldasoro

Hiru hegaztien hegada **alderraiak** desitxuratzen zuen aldian-aldian ilargiaren itxura onkotea. Anjel Lertxundi

Nor da hain auhen bortitzez kexu dena, bere tristura-pleinuz izar **alderraiak** konjuratu eta haiek geldiarazirik, entzule harridurak joen gisa? Juan Garzia

Neu ere zorigaitzaren geziaz zulatua izan nintzela, aspaldi, hain aspaldi ezen orduz geroztik bizitza fragata **alderrai** bat baino ez baita, suzko legami. Karlos Linazasoro

Jainkoak ahalmena, jakinduria eta borondatea dauzkala aldarrikatzen dugu, atributu horien bitartez Bera ez dela ezgai, ezjakin, **alderrai** ez arduragabea adierazi nahirik. Xabier Kintana

Musikero herritarrak, **alderraiak** izan dira betidanik, eta elizako kontu sagaratuetan gaizki ikusiak. Patziku Perurena

Otordu horren usaiera datorrena behar du izan, inondik inola, **alderrai** jende horrek guziak: alemanak, hungaroak, zingaroak, ijitoak, agotak, ikazkileak, kaskarotak edo dena delako eskazaleak, alegia. Patziku Perurena

2 (izen gisa)

Jai horren usainera bildu den gizajo eskazale tripazai guziaren prototipoan gorpuztu baita, seguru aski ere, bertakoen eta kanpoko **alderraien** arteko usario eta hizkera nahastea dela medio. Patziku Perurena

Lerroon xedea **Alderraien** Gidariaren irakurlea irakurketan gidatzea da. Xabier Kintana

Antzina bai izango zela gaueko iluntasuna ilun, beldurgarri, alegiazko izaki ezezagunez, **alderrai** gaiztoz betea zenean. Josu Zabaleta

Nire parean **alderrai** bikote gazte bat dago, txakurtxo eta guzti. Iban Zaldua

· "Aberri bila zebilen judu" eta "bukaera tragiko baterantz ihesean ibilitako martin-**alderrai** " gisa deskribatzen du Joseph Roth. Matías Mujika

3 (adizlagun gisa)

Alderrai zihoan, norarik gabe. Lopez de Arana

Alabaina, benetako usoak ari dira gaur **alderrai**, harlanduzko giharrak airera zabalduta dauzkan eraikin erraldoiaren inguruan. Javi Cillero

Claudek alde egin zuen, postuen artean **alderrai**, gerriko gorriarekin sabela estuturik. Karlos Zabala

Ongi konturatu nintzen bazenekiela zerbait horretaz, beste maisu batzuekin ikasirik, baina norarik gabe aurkitzen zinen, **alderrai**. Xabier Kintana

Jende atxilotua, jende egurtua, batetik bestera **alderrai**. Harkaitz Cano

Inoiz ez zen bere kasa ibili, **alderrai**, ordura arte; beti Big Joeri orpoz orpo atxikita ibiltzen zen. Mirentxu Larrañaga

Altxatu egin zen eta, kamisoia jantzita, **alderrai** ibili zen logelan zehar. Lopez de Arana

Idia **alderrai** dabil, norabidea eta usna galduta. Javi Cillero

Elurra bezala airean txiro eta **alderrai** zebiltzanak. Felipe Juaristi

Oraingo obra honetan, esan dudan bezala, filosofia ikasi eta egiazko zientziak bereganatu dituenarentzat ari naiz, eta erlijio gauzetan sinetsi arren, horiek inguratzen dituzten hitz eta alegoria ilunengatik, berorien esanguraz **alderrai** dabilenarentzat. Xabier Kintana

Horregatixe dago hau animaz beterik; barkamenik gabe hil zen jendearen **alderrai** ibiltze huts-hutsa, eta ez baitu lortuko barkamen hori inola ere, are gutxiago gutaz baliaturik. Juan Garzia

4 irud/hed

Bi lagunak egun nagi **alderrai** haren gozamena dastatzen hasiak ziren, eguzkia ozta-ozta baino agertzen ez zen bitartean. Karlos Zabala

5 ***herbeheretar alderrai*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Herbeheretar alderraia ala herbeheretar hegalaria, mamu ontzi bat da, mundu osoan aski ezaguna den kondaira batean agertzen dena, bereziki itsas giroan, itsasgizon, marinel eta arrantzaleen artean hedatua. ETC-entziklopedia

Bat-batean, odol koloreko eta masta beltzeko itsasontzia hurbilduko zaio eta bertatik **herbeheretar alderraia** jaitsiko da, itsasoan alderrai ibiltzera kondenatutako gizona, alegia. ETC-prentsa

Herbeheretar alderraia ere deitzen diote, ia-ia munduaren punta guztietan ibili delako lanean. ETC-prentsa

6 ***judu alderrai***

Diasporak barreiatutako judu sefarditarrak berriz ere diaspora bidea hartu behar izan zuten, berriz ere Europan zehar non kokatu ezinik ibili **judu alderraien** eran. J.M.

Olaizola "Txiliku"

Judu alderraia sentitu zara, erbeste batetik irteten ari zinelakoan beste erbeste are izugarriagoan sartuta. Xabier Montoia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderrai bat (4); **alderrai eta** (6); **alderrai ibili** (11); **alderrai ibili zen** (8); **alderrai ibiltzen** (8); **alderrai ibiltzen zen** (3); **alderrai ibiltzera** (3); **alderrai zebilen** (6); **alderraien gidaria** (4); **artean alderrai** (3); **barrena alderrai** (5); **eta alderrai** (5); **holandar alderraia** (4); **holandar alderraiaren** (3); **zakur alderrai** (3); **zakur alderrai bat** (3)

---

alderreskan *adlag* bata bestearen ondotik.

Galderak **alderreskan** egin nahi izan ditudalako, barnetik sortu zaizkidan galderak: egia da, nahiz eta aurrera egin, euskaran agertu direla gaitz kezkagarri batzuk? Pello Salaburu

---

alderri *iz* aldiria.

Haren asmoa, dakigunez, Tomskera iristea zen beste gatibuen artean nahasirik, horrela hiri garrantzitsu horretara sartuko baitzen haren **alderrietan** hara eta hona zebiltzan aitzindari tatariarren atzaparretan erortzeko arriskutan jarri gabe. Karlos Zabala

---

aldetik (bere horretan adizlagun bezala ez dago corpusean, soilik 'aldetik kendu', 'aldetik aldera' eta 'beste aldetik' esamoldeetan; ikus beherago).

1 *postpos*

Kaltzio **aldetik** eskastxo nenbilenez, barra-barra jan nuen klariona sasoi hartan. Eskarne Mujika

Bikoteari begira egoten natzaio, oraintxe etxe aurretik, oraintxe baso **aldetik**. Eskarne Mujika

Jatetxeak itsas **aldetik** du sarrera, eta ia buelta osoa eman behar izan diogu eraikinari. Anjel Lertxundi

Txabola **aldetik** marraka ahul eta aseak sumatu zituen. Itxaro Borda

Ia hamar urteren aldea dute euren artean, baina pentsaera **aldetik** berdintsuak dira. Jon Arretxe

Atlantiko itsasoa gainditurik etorriko dira Quebec **aldetik**. Herria

Kanposantu **aldetik** tiro hotsen bat iristen bazen, ez entzunarena egiten eta dardarizoa disimulatzen. Arantxa Iturbe

Eta monumentuari so zegoela arribatu nintzen, ezker **aldetik**, beste kale batetik nentorrela pentsatzera emanez. Piarres Aintziart

Haizea dabil orain, eta freskoa dator hiribide **aldetik**. Iban Zaldua

2 *postpos* (-en atzizkiaren eskuinean)

De Thou-k saria merezi zuen auzitegiaren **aldetik**, eta ez heriotza. Juan Martin Elexpuru

Ez zen beraien **aldetik** muntarik gabeko zerbait, baizik eta oroimenaren azken gudua. Joxan Elosegi

.: Sasoina ongi doa aroaren **aldetik**, iguzkia egin du uda honetan, euria gutisko mementoka, baina biperra biziki kalitate onekoa da eta, orokorki, kantitatez bada biperra aurten. Herria

Pedroren **aldetik**, lagunak ziren familia. Jon Maia

Gela aurrean, barneko atariaren **aldetik**, pasabide bat zegoen, bost metro zabal eta berrogeita hamar metro luze; iparraldetik zuen sarrera. Elizen arteko biblia

Azterbide hau, fonologiazko tratatu batean onartuko ez litzatekeena, zilegiztatua gertatzen da silabazioaren fenomenoa -bere faktore funtsezkoenen **aldetik** kontuan hartua-, eskema ahalik eta sinpleenera daraman azalpen batean. Isabel Arrigain

Hori dela eta, eleberri osoaren jarraitasunari kasu egiteaz gainera, atal bakoitzak ere beregaintasun bat behar zuen, osotasun moduko bat bai gaiaren bai egituraren **aldetik**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez behintzat mutikoaren **aldetik**, gero ikusiko den bezala. Koro Navarro

3 *postpos* (-ko atzizkiaren eskuinean)

Maximilian plaza iparreko **aldetik** zeharkatu genuen, alde hartako zuhaitz lerroaren babespean, ebaskan, ia makurturik, gerra garaian amak eta biok zinema aretoan ikusten genituen soldaduen modura. Alberto Ladron Arana

Hobe dugu basamortuko **aldetik** sartu; hilobira atzeko murrura igota iritsiko gara, aire zabalean dagoen aiekan. Patxi Zubizarreta

Uniformearen barruko **aldetik** spray bat atera eta presidentearen hankartea espraiatu du. Harkaitz Cano

Ez gara ari hemen eguneroko arauen erregulazioaz: autoa eskuineko **aldetik** gidatu beharko da eta urtero ordaindu beharko zaizkio zergak norbaiti. Joseba Zulaika

Aratsaldeko 4-etan abiatuko da Santespietako **aldetik**. Herria

4 *postpos* (erlatibozko adizkien eskuinean)

Natura den **aldetik** ez dago natura txarrik; bere baitan duen ontasuna galtzen duen heinean gaiztotzen da natura. Imanol Unzurrunzaga

Idazle argentinarra Tolosatik igaro berria zen, omenalditxo bat egin zioten bertan, eta guk, talde literarioa ginen **aldetik**, ezin huts egin halako ekitaldi batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Pedro Páramorena, bada, errealitate baten ispilu den **aldetik**, errealismoa da. Juan Garzia

Elurra, haustura den **aldetik**, une aproposa da aldaketarako. Bernardo Atxaga

Zutabegile naizen **aldetik**, jakina. Hasier Etxeberria

Interes handiko liburua, inondik ere, zaharra den **aldetik**, baina inolako ikustekorik ez duena jeneralei bataioan ematen ohi zaien izenekin. Antton Olano

Eta desagertze zorian diren guaiakoen eta ornitorrinko mokourdinen babesle naizen **aldetik**, poztu egin naiz, Espainiako Gobernuak esatera, gazteleraz soilik dagoen ikurra salbatu egin delako. Iñigo Aranbarri

5 *aldetik aldera*

Buhamea han zegoen, ur bazterrean, siberiar zaharra **aldetik aldera** zelatatzen betiko antzera, hura konturatu gabe. Karlos Zabala

-Sofa zarratatu zitean! -esan zuen oihuka geltokiko buruak-, sofa zarratatu ziotean geltokiko buruari, **aldetik aldera**. Fernando Rey

6 *aldetik kendu*

Beste edonork pozarren emango dizkit, **aldetik** lehenbailehen **kentzearren**. Jose Morales

Aldetik kentzeko, ezin eramanezko amets gaizto bat balitz bezala sentitzen baitut nire baitan. Josu Zabaleta

Burusi astunak behegainera bota, eta maindireen berotasuna ere **kendu zuen aldetik**. Juan Garzia

Irudiak ikusita, eta onak lortuagatik, ezin **aldetik kendu** enpresa keru hori. Iñigo Aranbarri

7 *beste aldetik*

Beste aldetik, gure etxean oso zabaldua zegoen poemak egiteko ohitura. Fernando Rey

Beste aldetik haatik, Izraelgo tribunal batek betiko presondegirat kondenatu du Marwan Barghonti, Arafaten Fatako buru lehenetarik bat eta Arafaten ordain beharra daukatena ainitzek. Herria

Artikuluak ez dakarren kontua beste bat da, hirugarrena, ni benetan izutu nauena: Xanjoxe Jexuxen ahaidea zela banekien, baina ez nekien **beste aldetik** ere, gure aitaren aldetik, ahaide genuela. Xabier Etxabe

Beste aldetik, jaitsiera bertan behera uzteko erabakiak kritika ugari jaso ditu. Berria - Euskal Herria

Dena dela, zakurrek gizonezkoa, larderiatsu bada eta **beste aldetik** adiskidetsu, hobetsi egingo dute. Gotzon Garate

Gurasoena, **beste aldetik** ere, euren gizatasunetik eta zentzuaren heldutasunetik dator, eta, hainbatez ere, euren seme-alaben ahuleziatik. Andres Urrutia

Beste aldetik, berriz, kontrako argudioari eutsi zioten: hain zuzen ere sentsazionalismoa saihesteko eta ekitaldia inork bere mesedetan erabil ez zezan gorde nahi izan zuten isilean. Ramon Saizarbitoria

8 *bakoitza(k) bere aldetik*

Handik laburrera **bakoitzak bere aldetik** egin ei zuten. Edorta Jimenez

Hogeita hamahiru urtean teilatu baten pean elkarrekin bizi izan ondoren, emaitza, **bakoitza bere aldetik** joan zelarik, hutsaren hurrena zen ia. Oskar Arana

Denak galdezka zeuzkaagu, eta jendearen jakin-minari amore ematen bazioagu, laster gaituk, **bakoitza bere aldetik**, eta nora jokatu ez dakigula. Pedro Alberdi

Atzo, gehiengo sindikalak ELA, LAB eta EILAS eta Hezkuntza Sailak agerraldiak egin zituzten, **bakoitzak bere aldetik**, eta lortutako akordioa zertan datzan eta izango dituen eraginez hitz egin zuten. Berria - Euskal Herria

Dantzan dabiltza, bai, baina **bakoitza bere aldetik**. Joxerra Garzia

Anselmo eta Rekexo zutitu eta, **bakoitza bere aldetik**, euskarriei tiraka hasi ziren, moja, ez zutik eta ez eserita, oreka txarrean ozta-ozta geratu zelarik. Joxemari Iturralde

Gero espezializazioa **bakoitzak bere aldetik** egin zenuten. Lourdes Oñederra

9 *kontrako aldetik*

Zuhaitz artetik errekara, Arin zegoen **kontrako aldetik**, gizon beltz bat zetorkigun errekara zuzen eta patxada handiz. Aitor Arana

Miarritzekobazter hortan, joanden egunean, jandarmeak ez dira guti harritu ohartu direlarik auto bat autobidean sartua zela arrunt **kontrako aldetik**! Herria

Kako-oker haitzera igo zen arnasa hartzera, eta une horretan bertan Peter **kontrako aldetik** ari zen haitzera igotzen. Julen Gabiria

-Batzuk hemendik joan daitezke -esan zion Martinek Brionesi-, eta beste batzuk **kontrako aldetik**. Koro Navarro

10 *nor(k)/zein(ek) bere aldetik*

Bi alderdietako batzar nazionalak bihar bilduko dira, **nork bere aldetik** hitzarmena berresteko; Jaurlaritzako Estatutu Berrirako Proposamena izango da koalizioaren hauteskunde egitasmoaren ardatza. Berria - Euskal Herria

Herrira iritsi baino lehen geratu, jaitsi eta **nor bere aldetik** atera zen. Koldo Biguri

Valentziara **zein bere aldetik** iritsiak, handik Madrilera batera etorri dira. Edorta Jimenez

Bere hirurogeita hamarretan, alargundu berria, eta bere bi seme-alabak **nor bere aldetik** joanak, tristagarri zitzaiola arras hamaika poz-iturri izandako txoko kuttuna hutsik topatzea, eta saldu egin nahi zuela. Txillardegi

Hitz batean, ederra zen dena, naturak edo arteak - **zeinek bere aldetik** - sekula asmatuko lukeen baino ederragoa. Jose Morales

Bazkal ostean **nork bere aldetik** jo zuen. Migel Angel Mintegi

Gizon gazteak apartamentua errentan hartu zuenez geroztik, hiru dama jakinek erdietsi zuten **nork bere aldetik** - xede handinahi hura. Mirentxu Larrañaga

---

aldetiko *izlag* 'aldetik'i dagokion izenlaguna.

Hori bai, garbi utzi behar nion neure **aldetiko** konpromisoa gau bakarrekoa zela, ez zegoela traturik bestela. Joan Mari Irigoien

Biziki pozten naute Araba **aldetiko** irratien deiak. Pello Zabala

Kapitulu horrezaz besteko kasu guztietan, ez dago, bi termino horien artean, esanahiaren **aldetiko** desberdintasunik. Isabel Arrigain

Horren ondoren, amaren **aldetiko** osaba baten etxera joan ginen. Juan Kruz Igerabide

Koloreak, oso zurbilak izan arren, lehen genionez, ortzadarrarenak dira; baina seinalatu, barru **aldetiko** gorrixka eta kanpoko morexka bakarrik seinalatzen dira. Pello Zabala

Euskal herritar guztiek izan behar dute bermatua bertan parte hartzeko eskubidea, eta "beraiei soilik dagokie arauak eta edukiak finkatzea, betiere ideologia edo lurralde **aldetiko** bazterketarik gabe". Berria - Euskal Herria

Egun batean nire amaren **aldetiko** aitonarekin oholtza gainera igo nintzen, eta belarria apaiz bati adi jarrita, bere apaiz anaien kantuen artean izen hori estalarazten zuela konturatu nintzen. Xabier Kintana

-Jainkoak daki zer-nolako izeba duzun hori: senarraren **aldetikoa**. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldetiko osabaren** (3); **aldetiko osabarenera** (3); **amaren aldetiko** (13); **emakumeen aldetiko** (3); **mediterraneo aldetiko** (3)

---

aldetu, alde(tu), aldetzen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* da *ad* zerbaiten alde jarri edo atera.

PAE-esplikazio hobe bat aurkitu liteke beharbada, baina Allison-ek, horren ordez, proposatzen digu beste erabakitze-eredu batera **aldetzea**. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aldez[1] **1** *adlag* alde batetik, hein batean.

-Gainera, **aldez** behintzat, neure errua izan da. Gotzon Garate

Arraza nahasikoa, **aldez** aleman ardi-zakurra. Gotzon Garate

Horretantxe du bere boterearen pitzadura bakarra, eta horrexek bihurtzen du jauntxo ikaragarria gizaki haragizko eta, **aldez**, bera ere biktima. Juan Garzia

Haren abenturak eta ihesaldiak garai hartakoak ziren, eta, aitonak zioenez, bere zeregin ugariek, **aldez**, sortuak. Jon Muñoz

2 ***aldez alde*** *adlag* alde batetik besteraino. ik **alde 5**; **alde 6**.

Heiligenstadt-en barrena joan, hirugarren geltokian jaitsi, **aldez alde** doan lehenbiziko kalean ezkerretara hartu, eta beste lau edo bost minutu oinez joanda. Anton Garikano

Konturatu zen, azkenean, zergatik zen: oihal batek bitan banatzen zuen gela, **aldez alde**, eta oihalari begira jarrita zeuden aulkiak. Jon Muñoz

Erradiazioa goi-beheak uztartuz ematen den bezala, adbekzioa berriz, **aldez alde**, aldameneka ematen da. Pello Zabala

3 ***aldez... aldez...*** alde batetik... bestetik...

Bere iritzi propioa zuen anaiaren gaixotasunari buruz, oso zentzuzkoa, **aldez** zientzian funtsatua, eta **aldez** Sasharen gaitza norberaren bizimoduarekiko kontentagaiztasun orokorrak eragin zuelako uste sendoan oinarritua. Jose Morales

Templek, hartaz ohartzean, **aldez** ukoaz eta **aldez** dedikazioaz konpondu zuen arazoa: zelibatuan biziko zen -hala erabaki zuen- eta zientzia bihurtuko zuen, oso osorik, bere bizitza. Xabier Olarra

Ez dago, beraz, munstrorik, **aldez** nahi eta **aldez** nahi ez izatea; arimaren gaitza da, ohituraren zamapean egiak ez baitu guztiz zutiarazten. Imanol Unzurrunzaga

4 ***aldez aurreko*** *izond* aldez aurretik zertzen dena.

Eta enpresa askotan **aldez aurreko** erretiroak onartzen dira, diru kopuru handiak emanda, eta erretiroa hartutako asko lanean hasten da hurrengo egunean. Iñaki Heras

Ez zenuen **aldez aurreko** asmorik, eta hala ere gure etxean zaude orain. Oskar Arana

Horretarako **aldez aurreko** lana egin behar da: mahai horren metodologia eta bestelakoak zehaztu behar dira, eta ezin dugu denbora alferrik pasatzen utzi. Berria - Harian

Bertsolariak **aldez aurreko** lanaren bidez ekin ahal izango dio beti muga honi. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

5 *aldez aurretik* *adlag* aipatzen den edo jakinekoa den zerbait baino lehen edo berez legokiokeen unea baino lehen. ik **aurrez**.

Verak **aldez aurretik** jakinarazi zion. Koro Navarro

Bere bi zaletasunak eta ogibidea elkartuta, kantari frantsesen abestiak entzunarazten zizkigun maiz eskolan, aditu behar genuen kantu horrexen hitzak **aldez aurretik** eman eta argituta. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zegoen baztertzerik, gainera, halako eszena bat ikustean, ikuslearengan eragina izatea kolore egokiak zein ziren **aldez aurretik** jakiteak: ile-adatsaren horitasuna, ikusi baino gehiago, asmatu egingo omen zuen ikusleak. Xabier Olarra

- Eta zuk ez duzu **aldez aurretik** ezer eskatzen? Lopez de Arana

Baina sute hark ez zeukan, **aldez aurretik** behintzat, halako itxurarik. Fernando Morillo

Nola ezagutu eta zenbatu, **aldez aurretik**, esperientziak berak bakarrik erakuts dezakeena? Andres Urrutia

Aldaketa horiek **aldez aurretik** jakiteko adina baliabide al ditu mendizaleak? Berria - Euskal Herria

6 *aldez aurretikako* *(ETCn **17** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **aldez aurreko** agertzen da) izlag* aldez aurrekoa.

Analisi fonologikoak transkripzioaren ondoren gertatu beharko luke eta ez **aldez aurretikako** baldintza gisa. Lourdes Oñederra

7 *aldez aurretiko* *izlag* aldez aurrekoa.

Ondoren, alderdiek negoziazioak hasi beharko lituzkete, «baina mehatxurik gabe, eta **aldez aurretiko** testu itxi batekin». Berria - Euskal Herria

Polizia gure etxera sartu zuan gauez, eta **aldez aurretiko** abisurik bota gabe tirokatu gintiaten. Mikel Hernandez Abaitua

Bat-batean, **aldez aurretiko** abisurik gabe, gelditu egin zen gurpil-aulkia. Alberto Ladron Arana

Tristura-printza oinazegarriak aienatu zituen, eta hagitz aztoratuta sentitzen zen, **aldez aurretiko** opari bat jasotzera doan norbait balitz bezala. Mirentxu Larrañaga

8 *aldez beste* *adlag* alderantziz.

Printzipioz problemarik ez luke egon behar "arraza" ez indoeuropar batek hizkuntza indoeuropar bat, edo, **aldez beste**, arraza indoeuropar batek, hizkuntza ez indoeuroparra mintzatzeko, baina tesi arrazial handietan ez dira horrelako txikikeriak aintzat hartu ere egiten. Joxe Azurmendi

9 *aldez bestera* *adlag* alderantziz.

Irakaspen ederra, gizakion arteko adiskidantza zuhur baterako, bi aberek hartzen duten jarrera hori: elkarri lepagaina hazkatu, buruak **aldez bestera** gurutzatu, berriz ere elkar hazkatu eta kontsolatu, eta atzenean lurrera begira geratu. Patziku Perurena

Ama negarrez eta aita errietan; edo **aldez bestera**, agian: amak nau sermoneatzen eta aitak ez du txintik ere ateratzen. Jesus Mari Mendizabal

10 *aldez edo moldez* *adlag* nolabait, alde batetik edo bestetik.

Eta gauza ziurra da, idazten ez duelarik ere, bere hurrengo obretako pertsonaien konpainia noblean ematen dituela, **aldez edo moldez**, tarte luzeak. Berria - Kultura

Aldez edo moldez, burua sutan zeukala zulotik atera bezain pronto, bilin-balaunka jo zuen alboko hormaren kontra, non, esekita zeuden kate batzuen artean korapilaturik, hil egin zen gizajoa, erabat kiskalita. Josetxo Azkona

Hori guztia kontatzeko premia errebindikatzen du neorrealismoak, hori guztia dago, **aldez edo moldez**, Silvana Manganori izarren lekua eman zion pelikulan. Anjel Lertxundi

Gernikako irudiak ahaztu gura zituen **aldez edo moldez**. Lutxo Egia

Baina hori, **aldez edo moldez**, gauza guztiekin gertatzen zaigu. Juan Garzia

---

aldez[2] ik **aldez*tu***.

---

aldezkari **1** *iz* pertsona, ideia edo iritzi baten aldekoa edo defenditzailea. ik **aldezle**.

Pietro Badoglio jeneralaren **aldezkariak** (Mussoliniren erorketaren ondoan haziriko talde bat). Juan Garzia

2 *fedearen aldezkari* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Deabruaren abokatua edo **fedearen aldezkaria**. Nahiz eta bere eginkizuna, itxura batean, hautagaiaren aurka daudenen artean lerrokatzea zen, egiazki, katolikoek imitatu beharreko eredu bezala proposatua izango denaren bertuteen benetakotasuna defendatzeaz arduratzen zen. ETC-entziklopedia

---

aldezle *iz* pertsona, ideia edo iritzi baten aldekoa edo defendatzailea. ik **aldezkari**; **aldeztaile**.

Kriolloa -Txepetxek ohartarazten gaituenez- indigenista agertzen da europarron aurrean, indioen ondorengo eta **aldezle**, baina guztiz europar jokatzen du gero indio horiexen aurrean, indio-odolik balu ere hura ukatuz eta ezkutatuz. Xabier Mendiguren Elizegi

Haren arrazoibide hori berori askotan erabili izan dute arte abstraktuaren **aldezleek**: [...]. Josu Zabaleta

Egia esan, garaian eugenesiak **aldezle** asko zuen Europan. Joxe Azurmendi

Jarrera akademiko tradizionalak, perspektiba zientifikoki zilegizkoa zen sistema bakartzat zeukanak, **aldezle** berriak aurkitu ditu orain, Panofskyren erlatibismo historikoaren kontra, Berpizkundean asmatu zen sistemak zientifikotasun bat baduela eta, horrenbestez, denboraz kanpo balio absolutu bat baduela diotenak. Josu Zabaleta

Herri mitiko hau, "independentziaren" **aldezle** heroikoa, bere kate eta joputzaren defendatzaile da aldi berean. Joxe Azurmendi

Alderdi sionistaren klub batera joaten naiz, joan, nahiz eta hara joateko eskubiderik ez izan, aiton-amonak sionismoaren oso kontrakoak baitira; ni neu ez naiz **aldezle** amorratua, baina alde nago, eta interesatzen zait. Josu Zabaleta

Baina ez zen ikasle-izar horietakoa; ez zen beste itsu asko bezain abenturazale, ez eta beregaintasunaren **aldezle** temati ere. Xabier Olarra

Irudia ulertzen bada, bere antolamenduan ikuslearen psikismoaren "antza" duelako ulertzen dela dioen tesiaren **aldezle** sutsuenetako bat baita Eisenstein. Josu Zabaleta

Aita Olaso etorri zitzaigun bila, arrain handiak ginela usteko zuten gure herri·**aldezleek**. Koldo Izagirre

---

aldezpen *iz* aldeko jarrera edo iritzia.

Agerian dago zer den adierazpen hau: fotogeniaren definizio bat ez, ez baita definizio argirik artikulatzen, filmaren estetika jakin baten **aldezpena** baizik, eta halaxe nahita, une hartarako aski polemikoa, gainera. Carlos Argentinok dastatu zuen, poliki zegoela iritzi, eta han ekin zion, kopa batzuen buruan, gizon modernoaren **aldezpen** bati. Josu Zabaleta

Eusko Aberriaren **aldezpena** garestia izan dela, eta hamabi mila gaztek eman dutela bizia gudatokietan. Berria - Kultura

---

aldezpide *iz* defentsa, alegatoa.

Garai hartan guztien ahotan zebiltzan **Aldezpideak**: apologia eta profeziazko liburuak, unibertsoko gizon bakoitzaren egintzak betiko aldeztu eta etorkizunerako jakinbide miragarririk gordetzen zutenak beren baitan. Juan Garzia

Milaka jende gutiziatsuak han joan ziren, beren jaiotzako hexagono amultsua utzi eta eskaileretan gora oldarrean, beren **Aldezpidea** aurkitzeko asmo ustelaren deira lasterka. Juan Garzia

Aldezpideak, izan, badira (nik bi ikusi ditut etorkizunari dagozkionak, agian irudimen huts ez diren bi pertsonarenak), baina bilatzaileei ez zitzaien gogoratzen gizon batek

berea, edo berearen aldaera maltzurren bat, aurkitzeko duen posibilitatea zerotzat jo daitekeela noski. Juan Garzia

---

aldeztaile *iz* aldezlea.

Hainbat olerkari eta bertsolarik bat egin zuten *Euskal-Erria* aldizkariak argitara emandako monografikoarekin (1080. zkia., maiatzaren 15ekoa), guztiak ere garai hartako donostiartasunaren gizon handiak eta euskal kulturaren eta euskararen **aldeztaileak** -aldizkariaren sortzaile Jose Manterola bera bezala-: [...]. Askoren artean

Errepublikanoa zen, mende arteko Donostiako ideia liberalen **aldeztailea**, eta Unión Artesanaren presidentea izan zen, hau da, donostiar jai eta danborraden elkarte aitzindariarena. Askoren artean

Oinarri-esakune honen **aldeztaileek** ahalgarritzat ez ezik, berezkotzat ere jotzen dute errealitate oro zerizan batean bateratzea aurkakotasun arduratsurik gabe. Ibon Uribarri

Honek ere aldeko sutsuak ere baditu, eta gainera, nolabait moraltasun garaiagokoa izanik, diskurtso honen hainbat **aldeztaileren** ustetan, ñabardurarik ere ez du onartzen. Iñaki Heras

Etsai honen aurka dagoen kausa onaren **aldeztaile** dogmatikoa ez nuke inolaz ere irakurriko, zeren aurretiaz baitakit bestearen itxurazko oinarriak bereak sartu ahal izateko baino ez dituela erasotzen. Ibon Uribarri

---

aldeztu *(ETCn **1.894** agerraldi)*, aldez(tu), aldezten **1** du *ad* norbaiten edo zerbaiten alde egin, norbait edo zerbait defendatu.

Adimenaren egoitza garuna zela **aldeztu** zuen lehenik. Irene Aldasoro

Zer esan, ordea, Mendebaldean, inolako bortxarik gabe, beren bizitza, beren askatasuna, beren ogibidea galtzeko inolako beldurrik gabe, gezur eta kontraesan nolabait josiok suhartasun neurrizgaineko batez **aldeztu** zituztenez? Juan Garzia

Letra perfektoa zen, profil zehatzekoa; ortografia, Andrés Bello-k **aldeztu** zuen tankerakoa: y ordez i, g ordez j. Juan Garzia

Auzian dauden bi parteetako ezein ez du **aldeztu** nahi, kontzienteki bederen, beltzak eta zuriak, kasu honetan mairuak eta kristauak, koloreen arabera. Jon Alonso

XIX. mendean, Courbet baten errealismoak, edo, argiago, inpresionismoak, "ikusten dena" margotu behar zelako ideia **aldeztu** nahi izan zuen (edo "ikusten den bezalaxe" margotu). Josu Zabaleta

Gizarteko toki nagusien banaketak ere oso liskar bortitzak pizten zituen, eta senarrek, emazteak **aldeztu** nahirik, zaldunen denborako asmo handientsuak egosten zituzten batzuetan. Jose Morales

Adimenaren egoitza garuna zela **aldeztu** zuen lehenik. Irene Aldasoro

Sutsu **aldeztu** zuen ezezko botoa 2003ko uztailaren 6an, uharteko erakundeen bidea aldatu nahi zuen erreferendumean. Berria - Mundua

2 (era burutugabea)

Ikusten duzunean auzibidea amaitzera doala eta epaileak, eragozpenik gabe, laster erabakiko duela, ez saiatu zeure burua zuritzen edo **aldezten**. Jose Morales

Horren guztiaren kontra, gizatasunaren zentzua, gizatasunaren bilaketa **aldezten** du Saint-Exupéryk, eta bere pilotu esperientzian, elkartasunean bizi izandako arriskuaren esperientziak ematen duen batasunean aurkitzen du gizatasun hori. Josu Zabaleta

Halaz guztiz, asmo oneko hainbat jendek uste du ezen, dagoeneko eskura ditugun ezaguera eta trebetasunekin, banakoaren eskubideak **aldezten** dituen gizarte baten baitan, posible dela, printzipioz, gure ondorengoen etorkizuna hobetzea zenbait neurri baliatuz, hala nola elkartze kontrolatu edo "aholkatu"zko sistema bat ezarriz edo bikote bakoitzari baimenduriko haur kopurua doituz. Juan Garzia

Borges ez da pertsona bat, ez eta pertsonaia bat ere, literatur kategoria bat baizik, edo, akaso berak guztiz begi onez ikusiko ez lukeen tropo topiko batez esateko, literatura bat (idazlearen inpertsonaltasuna **aldezten** baitzuen, bat zen harentzat Literatura). Juan Garzia

Gizon batek mailegutan hartzen duenean, bere alde egindako legea bera du oztopo: lege horrek bere kontra ditu bai **aldezten** duena eta bai kondenatzen duena. Iñaki Iñurrieta

Merkantilismoak printzearen zerbitzura zegoen merkataritza-klasearen interesak **aldezten** zituen; ekonomia politiko klasikoak -Ingalaterran garatu zen, eta Ricardo du ordezkari nagusia -, nazioarteko optimumari buruzko hausnarketez jantzirik, britainiar kapitalismoaren interesak **aldezten** ditu. Koro Navarro

Lyotarden liburuan estetika zehatz bat **aldezten** da, "figural"-aren estetika. Josu Zabaleta

Fotogenia oso salgai bakana da haren iritzian ere; estetika bat definitzen du, Epsteinek **aldezten** duen estetika bera hain zuzen. Josu Zabaleta

1702an argitaratu zuen *A Mechanical Account of Poisons* (Pozoien esplikazio mekanikoa) liburuaren hasieran, zera **aldezten** zuen: matematika ikertzeak erakutsiko ziela medikuei nola konpondu medikuntzako arazo ezin konponduzkoak. Irene Aldasoro

Hipotesi zentzugabe bat, agerian inork ere **aldezten** ez bazuen ere, denek onartzen zutena. Josu Zabaleta

Hala ere, dioena baino gehiago (eta gutxiago) dioen neurrian, prest nengoke hogeita hamasei letra dituen eta ez dituen ahapaldi horien poematasuna **aldezteko**. Joxerra Garzia

Diru-agintariek erasotako parekotasuna **aldezteko** egindako ahaleginak, izan ere, espekulazioa elikatzen du. Koro Navarro

Gobernuak bere burua **aldezten** du, eta badu zerbait arrazoi, esanez Ramon Baez Figueroak besteratutako 2.200 milioi dolarri (herri aurrekontuaren %66) Estatuak aurre egin behar izan zionean erne zela krisia. Berria - Mundua

EAren lan ildoa eredutzat izanik, Ibarretxeren Plana sutsu **aldezten** du. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldezten du** (4); **aldezten zuen** (4); **aldeztu nahi** (3); **aldeztu zuen** (8); **interesak aldezten** (3)

---

aldi *(ETCn **100.606** agerraldi)* **1** *iz* adierazten den ezaugarria duen, edo besteren bati kontrajartzen zaion denbora hedadura; garaia; gertaera baten gauzatze bakoitza; era bereko egite sail edo hurrenkera batean, norbaiti edo zerbaiti berea dagokion unea; denboran zehar gertatzen den zer batean bereiz daitezkeen zatietako bakoitza. ik **garai**[1]; **aro**; **txanda**; **okasio**.

Suburbio berdinetan helduko zaik edadea), nahiz eta **aldi** bat irauten duen amnesia partzialaz goza dezakeen batek, eta batzuetan ikaratu ere bai, erabat bakarrik bizitzera ohitu eta norbere bizitzan inor inpreszindible ez dela ohartzeak bertigoa eman bailezake. Harkaitz Cano

Oraindik ere Indiak lehengo **aldietako** aztikeria eta mirariak gordetzen ditu. Gotzon Garate

Mundua ezagutu nahi omen zuen zamako batean ontziratuta, halako asmoa zerabilen berarekin hitz egin nuen azken **aldian**. Koldo Izagirre

Aldi batez ezerk ez dik kalte egingo, // nor haizen ere ez duk inor oroituko! Xabier Olarra

Aldi hartan, kronika eta kritika ugari idatziko ditu egunkari eta aldizkarietan. Itziar Otegi

The 42nd Parallel (1930) eleberrian, 1900etik Lehenengo Mundu Gerrara bitarteko **aldia** izan zuen gai nagusia. 1919 (1932), berriz, gerraz eta Versailleseko ituna sinatu zen urteaz ari da. Lopez de Arana

Ohar bedi, bide batez, erregela hauen arteko hurrenkera adierazi behar dela; esaterako, (ii) erregelak (v) erregelaren aurretik joan behar du, edo /teykt/ bezalako formak sortuko ditugu take aditzaren iragan **aldirako**. Itziar Laka

Aldi bat baino gehiagotan erran dit Serge adiskide filosofoak nola Kant zaharrak bereizten zituen jitea eta karakterea. Piarres Aintziart

Eta, gainera, aspertua nago burura datorkidana isiltzen, eta har ezazu kontuan sekula ez zitzaidala atsegin izan horrela aritzea, eta gutxitan jokatu dut horrela, baina **aldi** gutxi horiek ere gehiegi dira niretzat. Karlos Zabala

Antoniettak perlesia **aldi** bat izan zuen, eta burutik nahastuta geratu zen. Josu Zabaleta

Egia da: niri mendia izugarri gustatzen zitzaidan arren, kostata lortu nuen, pare bat **alditan**, Marga nirekin eramatea; bigarrenean, edonola ere, kasik deshidratatu egin

zitzaidan Irumugarrietarako bidean, eta ez zen gurekin inoiz itzuli. Iban Zaldua

Hau da Ermua telebistan ikusi duzun lehenengo **aldia**. Lutxo Egia

Ez dugu horren frogatzerik aitzineko liburuak irakurriak dituztenei eta besteei erranen diegu berek egin dezaten **aldi** honetan proba. Piarres Aintziart

Aldi nuen. Iñigo Aranbarri

"Nola gustatzen zaidan gazta!", esaten zuen gure amak gazta mahaira ekartzen zuten **aldi**-aldiro. Fernando Rey

Eta bigarren **aldia** da ja. Fernando Morillo

Begiak gora eraman zituen azken **aldi** batez, eta azokei begiratu zien. Karlos Zabala

Azken **aldi** honetan haurtzarotik lagun izan dudan Azpeitiko jesuita batek herio-mehatxuak ere izan ditu, jauntxoek eginak. Gotzon Garate

Mila **aldiz** kontrakoa esan diguten arren, Saderen obrak ez du zerikusirik sufrimenduarekin, plazerarekin baizik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nakok orduan lehen **aldikoz** ukitzen zuen Teodororen burua ezkerreko titi malgortuaren gainean mantendu zuen, eztitasunik gabe. Itxaro Borda

2 (izenondoekin)

Rosen bidez izan zuen haren aditzea, neska ikusi behar izan zuen **aldi** bakanetan. Mirentxu Larrañaga

Baina bitarteko **aldi** goibelaz ez dut gogoramenik, ez behintzat gogoramen zehatzik. Koro Navarro

Bertsolaritzaren antzinatasunaz mito errazegi bat egin da, euskal bertsolaritza betikoa edo dela; eta mito guzien kontra doan gure **aldi** azkar honetan erraz sortu da antimito haserretua ere: bertsolaritza fenomeno aski modernoa dela Euskal Herrian, XIX. mendekoa edo. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Nola sortu da hainbeste mota horren **aldi** laburrean? Gotzon Garate

Gazte asko dira ikastera etxetik kanpora doazenak eta ikasle-garai hori askatasun-**aldi** zoragarritzat hartzen dutenak; horiei pena eta guzti eman ohi die ikasketak amaitzeak, eta izaten omen dira estudiante tunante bizimodua luzatzearren eskolan hala-moduz ibiltzen direnak ere; ezagutuko zenituen horrelakoak noski. Xabier Mendiguren Elizegi

Bi urte gutxiago, alazangoa! - esan zuen, dena segidan eta ia oka, arnasari eutsi behar izan zion **aldi** luzean hitzak pilatu eta pilatu egin balitzaizkio bezala. Anjel Lertxundi

Iraultzaren jarraitzaile sutsua izan ez arren, Tronchetek erdietsi zuen, pausorik pauso, iraultzaren lehen **aldi** nahasiak gainditzea. Andres Urrutia

Burezurra osatzen duten molde irregularreko hezurrek jaioberritako **aldi** labur batean baino ez dute izaten jokorik. Irene Aldasoro

Hura izan zen, nik gogoratzen dudanez, amona zorrotz eta haserre ikusi nuen **aldi** bakarra. Jon Muñoz

Lodzeko pub batean entzun zituen lehenengo aldiz Everything But The Girlen kanta horiek, duela zenbait urte, Ivanekin irten zen **aldi** bakan horietako batean. Iban Zaldua

Hiriak bizitutako **aldi** beltz eta ilunaren ondoren, prest zeuden bertakoak, festaren errituaz lagundurik, etorkizunari heltzeko. Askoren artean

Ez dut ukatuko, ordea, nik ere izan ditudala neure **aldi** txarrak, baina edozeinek daki zer-nolako arriskuak izaten diren familia-bizitzaren ate itxien ostean zelatan. Oskar Arana

Agerre izana zen lehenago Parisen, **aldi** labur batean. Aingeru Epaltza

- Zuekin! - uste dut gidatzen zihoala begiratu zidan **aldi** bakarra izan zela. Koldo Izagirre

Aurki ohartu nintzenez, teknikoek protohizkuntza deitzen duten zer horretara bideraturik zegoen haren interesa, hots, hizkuntzaren **aldi** zahar eta lehena, datu ziur eta zehatzik ez daukaguna. Xabier Mendiguren Elizegi

Aldi bakanetan gertatzen dela dio, eguzkiak erre begitartea areago ilunduz. Xabier Montoia

Osaba Vilik ziurtatu digu, edozelan ere oraindik eutsi egin beharko dugula behin-behineko **aldi** labur batez, aliatuen lehorreratzeak - bere hitzetan - "alemanen patua behin betiko zigilatu baitu". Urtzi Urrutikoetxea

Euren buruari itaunduko deutsee ea zer egin behar daben: patuari amore emon eta lan munduan sartu, bizitzaren **aldi** onena iragan dala onartuz? Jon Arretxe

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zernahi ordainduko zenuke ezagututako atsegin **aldi** hura sekula zure baitatik desager ez zedin, bukagabeki iraun zezan. Hasier Etxeberria

Hark esaten zuenez, gerra amaitzean, holandar herriak alemaniarren okupazio **aldian** jasandako sufrimenduen lekukotasuna emango zuten idatzi guztiak bildu eta argitaratzeko asmoa zegoen. Josu Zabaleta

Ukur-**aldi** bat eginik, galdegiten dit aita superiora mintza dezakeenez. Marzel Etxehandi

Gaztelaniaz baina karaktere grekoz idatzia zuen Agurtzanek bere atxilotze-**aldiaren** lehen bertsioa: a, b, g, d... amak koadernoa deskubrituta ere bere minaren handiaz ez ikaratzeko. Agurtzane Juanena

Teknikaren aurrerapenei esker, urte guztia da orain laranja-**aldi**. Joxerra Garzia

Nire esna-**aldi** eternalak, aitzitik, gauzak sakon hausnartzeko beta eman dit. Iban Zaldua

Goian seinalatu behatoki arruntek, egunero beha-**aldi** eta apuntaldi bat -goizekoa hain justu- egiten zuten bezala, sei behatoki osatu hauetan hiru ordu genituen seinalatuak, datuak zintzo jasotzeko: goizeko zortzietan, eguerdiko ordu bata edo ordu bietan, eta arratsaldeko zazpiak edo zortziak aldera... Pello Zabala

- Hogeita lau sartu-**aldi** zauzkaat. Koldo Izagirre

Ez dakit maitemin **aldi** baten atarikoak ez ote diren izan... Patxi Zubizarreta

Infernu **aldi** osoak, harrigarriro, hasperen bakar baten iraupenera bilduak. Txillardegi

4 ***Acheul aldi*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi* ***1****)*

Lehen harri kultura, Aziliar edo **Acheul aldikoa**, Behe Paleolitoan sortu zen, eta badirudi "Homo erectus"a izan zela garai hartako gizon mota. ETC-entziklopedia

5 ***aldi bakoitz***

Baina español liberalek ez zuten denborarik galtzen eta jadanik Urdazubin hasiak ziren polliki sartzen, Bera de Bidasoan ere, **aldi bakoitz** 300 gizonekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baina **aldi bakoitz**, pilota sakelatik ateratuz erakusten nion eta berehala gure borrokak gelditzen ziren. Daniel Landart

Bi kulturen berezitasunak hobeki ezagutzen ahalko dira, dela erakusketa, mintzaldi, solastatze eta kontzertuaren bitartez, **aldi bakoitz**, bi hizkuntzak erabiliak izanen baitira. Herria

6 ***aldi bat***

Dena kantu, euskaraz, frantsesez, españolez ala... kaskoinez! Afaltiarrek ere parte hartuz **aldi bat** baino gehiago... Herria

Laburzki akabatzeko, ezen sujeta biziki luzea bailitake, naizen laborari xinpleak erran lezake: oraino **aldi bat** ikusten dugula, Parisek erabiltzen nahi duen lekurat manera guziez diruz, tribunalez edo ainitz xifretako artikuluz. Herria

Aldi bat bizkitartean, joan den uda hastean izan behar zen, bat-batean uste ukan dut haatik ene "arrosa urdina" hor nuela ene begien aitzinean.... Janbattitt Dirassar

Frantsesek, oraino **aldi bat**, eskuratu zuten 1829. urtean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nahiz, **aldi bat** gehiago errepikatuko dugu, apezpikuaren meneko zen. Xipri Arbelbide

7 ***aldi batean***

Ez zuten **aldi batean** hitzik egin. Fernando Morillo

"Lanerako txakurrak, **aldi batean** zaintzeko ematen dizkidatenak: bi aste, astebete, batzuetan asteburu bakar baterako. Oskar Arana

Aldi batean, bizimodu lasaia izan genuen, gudu-oin batean ahal bezain lasaia. Mirentxu Larrañaga

Aldi batean ez zen gozoa izan egoera, egunero deiak, presioak. Iñaki Iñurrieta

Hotz gordinenetara ohituta bizi behar izan zuten **aldi batean** Katalunia eta Valentzia aldeko biztanleek. Pello Zabala

Isilik egon ziren **aldi batean**, bizkor pasatzen ziren soro eta bideak ikusten. Iñaki Mendiguren

Bi egun eta erdi igaro dira sasoiko lehen derbia amaitu zenetik, baina ez da ahantziko **aldi batean** Miarritze eta Baionaren arteko partidaren inguruan sorturiko guztia. Berria - Kirola

Legez kanpoko laguntzen bi espedienteak bertan behera utzi ditugu **aldi batean**. Berria - Ekonomia

Aldi batean oso emakume bitxia iruditu zitzaion Candil kaleko ematxar bat; begi beltzak, itzal ilunez margotuak zituen, eta irribarreak hortz zuriak erakutsarazten zizkion. Josu Zabaleta

Bai, merexitua duzu, erretor baliosa, omenaldi egun hau, ez **aldi batean**, bainan bietan, hiruetan, lauetan, bortzetan, seietan eta bixtan da zazpietan! Herria

-Agirre...! Ardotxi nauk - **aldi batean** berarekin erabilitako izena. Rafa Egiguren

Aldi batean isilik egon ondoren honela esan zidan aitak: "Hau ikusita, bistan da Jaungoikoa". Jenaro Garate

Nahiz eta, **aldi batean**, adar hezeak izan, tinko ez dagoenez, haizeak astindu eta indarrez aterako du sustraitik. Elizen arteko biblia

8 *aldi bateko*

Maitasun, iz. **Aldi bateko** erotasuna, ezkonduz edo eritasuna sortu zioten eraginetatik aldenduz sendatzen ahal dena. Xabier Olarra

Caulfieldek ere sufritu egiten zuen, noski, baina bere sufrimenduak **aldi batekoa**, hutsala, zirudien. Bernardo Atxaga

Halere, azkenean ia bera ohartu gabe, eskutik heldu genion eta **aldi bateko** behintzat bizirik atera genuen. Gotzon Garate

Bere lekua atxiki du Teilleryrekin eta beste **aldi bateko** ere on izanen dela erakutsi. Herria

Askatasunak **aldi bateko** estradizioak salatu ditu "gero estradizioari bide egiten diotelako. Berria - Euskal Herria

Hain urrun sentitzen nintzen, non ez baitzitzaidan alhatzen kontzientzia gaixtoa, bere **aldi bateko** boz akusatzaile harekin eta bere zaunka harekin. Joan Mari Irigoien

Eta beste ezer baino lehen, esadazu ea idatziz promulgatutako lege hau baliagarri zaien **aldi bateko** bizitza honetan bizi diren gizaki guztiei. Imanol Unzurrunzaga

9 *aldi batekotasun* aldeberekotasuna.

Halaber, gure autoreak proposatzen du aldi **batekotasunaren** ardatzari eta segidenari sinkronia eta diakronia esatea. Isabel Arrigain

10 *aldi baterako* *(orobat* ***aldibaterako*** *g.er.)* *adlag/izlag* denbora tarte baterako.

Oinaze-atalasetik hurbileko soinuen eraginpean jarraituki egoteak kaltea dakar, **aldi baterako** edo betiko. Irene Aldasoro

Trigezio eta Lizentzioren arteko eztabaida idatzita bidaltzen dizut; lehena armadara joan zitzaigun **aldi baterako**, diziplinen ikasketa gogaikarrietatik ihesi bezala. Imanol Unzurrunzaga

Rachel Londresen hitzaldi bat ematera gonbidatu zuten, eta orain Terrence-ren gurasoen etxean daude **aldi baterako**, Cornwall-en. Oskar Arana

"Gera naiteke hemen **aldi baterako** ?", galdetzen du. Oskar Arana

Guztiok dugu geure lobulu frontalen agintepetik **aldi baterako** jai hartzeko premia. Xabier Olarra

Gauzak honela, han joan zen bizitzera Moab lurraldera, **aldi baterako**, Judako Belengo gizon bat bere emazte eta bi semeekin. Elizen arteko biblia

Frantziskoren aitak, famili arazo batek behartuta, etxetik alde egin behar izan zuen **aldi baterako**, Jainkoaren gizona etxeko kartzelan preso utziz; ama eta biak bakarrik gelditu ziren etxean. Askoren artean

Momentu batetik aurrera eta **aldi baterako**, mundu guztiak pentsatuko luke modu berean, azaleko ezberdintasunak izan arren, gauza bera esango luke, hiztegi polimorfo baten bidez, eta diskurtso handi baten moduko bat sortuko luke, zentzu guztietan zeharkatu ahal izango litzatekeena berdin berdin. Xabier Arregi

Hankak luza ditzake; izan ere, hankak ez daude gorputza bezain ile sarriz estaliak, eta, haiek luzatuta, gorputzeko tenperatura gordetzeko mekanismoa geldi daiteke **aldi baterako**. Irene Aldasoro

Orduan, parabola hau esan zion Jesusek herriari: "Gizon batek mahastia landatu zuen eta, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen **aldi baterako**. Elizen arteko biblia

'Hotza txakurraren pitilinaren modukoa da, behin sartuz gero barruan geratzen da **aldi baterako** ! Joseba Sarrionandia

Musu hark traidorea kontseiluko buru bihurtu zuen, khodja bera baino gorago jarriz **aldi baterako**. Karlos Zabala

Urtearen lehen hilean israeldarren elkartea Tzin basamortura iritsi zen eta herri osoa Kadexen gelditu zen **aldi baterako**. Jose Antonio Mujika

Horri esker, biziraupen arazoa konponduta geratu zitzaien **aldi baterako**. Iñaki Iñurrieta

Behin, Nocerako fraideek gurdi bat behar zuten **aldi baterako**, eta Pedro izeneko gizon bati eskatu zioten. Askoren artean

Zabalik utzi dizu bidea, **aldi baterako** bederen; menturaz ez da nehoiz zuzpertuko eman diodan ukalditik. Jon Muñoz

Amerikar herri osoa zegoela prest, salbuespen gisa eta **aldi baterako**, diziplina militarraren mende jartzeko. Iñaki Mendiguren

"Gera naiteke hemen **aldi baterako** ?", galdetzen du. Oskar Arana

Amerikar herri osoa zegoela prest, salbuespen gisa eta **aldi baterako**, diziplina militarraren mende jartzeko. Iñaki Mendiguren

Bermerik gabeko garaian bizi gara, **aldi baterako** lanen garaian. Berria - Gaiak

Aldi baterako aterpetxea izango litzateke. Berria - Gaiak

Prestige ontziaren hondamendiaren inguruan idatzitako azken txostena onartu zuen atzo Europako Legebiltzarreko Itsas Segurtasunerako **Aldi Baterako** Batzordeak. Berria - Gaiak

Kaltea izan duten langileak **aldi baterako** azpikontratatuak dira. Berria - Gaiak

Hasieran, taxia **aldi baterako** konponbidea baino ez zen izan, errenta pagatu ahal izateko behin-behineko neurri bat beste zerbait aurkitu bitartean. Oskar Arana

Liburuaren eta obraren batasun tradizionalak alde batera utzi direla, ez behin eta betiko baizik eta **aldi baterako** eta metodo kontu bategatik. Xabier Arregi

Labur esateko, pozik kenduko nituzke bistatik **aldi baterako**, baina ez dute ulertzen. Josu Zabaleta

-Doala Madrila **aldi baterako**. Josu Zabaleta

Auzi honi buruz aipagarria da halaber hainbat gaitzespen eta eraso jaso dituzten **aldi baterako** lan enpresen sorkuntza (gaztelerazko ETT laburduraz ezagunak direnak). Iñaki Heras

Atzoko igoerarekin, 70 liberako maila gainditu du jada Suitzako **aldibaterako** lan enpresak. Berria - Ekonomia

11 *Aldi Baterako Enplegu-erregulazioko Espediente* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi* ***1****)*

Aintzat hartu behar da sektore horrek euskal Barne Produktu Gordinaren %6a ordezkatzen zuela 2015ean eta COVID-19 pandemiak eragindako berrogeialdia Euskal Herrian udaberriko berrogeialdiaren ondorioz sektore horretan jarduten zuten milaka langile **Aldi Baterako Enplegu-erregulazioko** Espedientean (ABEE, Gaztelania gaztelerazko ERTE siglez ezagunagoa) zeudela. ETC-entziklopedia

12 *aldi baterako ezintasun*

Bide batez, **aldi baterako ezintasunetan** mutualitateen esku hartzea galaraziko dute. Berria - Ekonomia

Ondorio ekonomikoei begira, "senda-agiriak **aldi baterako ezintasunagatik** jasotako soldata gehiago ez kobratzea ekarriko du», sindikatuek diotenez. Berria - Ekonomia

Kontratazioak, segurtasuna, istripu eta gaixotasunagatik **aldi baterako ezintasunak** eta diru ordainak ere ika-mika iturri dira. Berria - Ekonomia

13 *aldi baterako laneko enpresa*

Urte horretan PSOEren gobernuak arrazoi objektiborik gabeko aldi baterako kontratuak baimendu zituen, eta hamar urte beranduago urrats gehiago eman ziren: **aldi baterako laneko enpresak** legeztatu; hiru hilabetean ehun langiletik hamar kaleratzea kaleratze kolektiboa zenik ukatu... Berria - Harian

Irudimen, umore eta parodiaren bidez, Duina gazte taldeko kideek behin-behinekotasunaren eta **Aldi Baterako Laneko Enpresen** aurkako Gelditu plataforma ezagutarazi zieten atzo herrikideei. Berria - Ekonomia

14 *aldi batez* *adlag* denbora tarte batez.

Aldi batez, sukaldeko arasetan ibili da, katilu eta zartaginek eragindako kalakak salatzen duenez. Javi Cillero

Aldi batez, bere begiak distiratsuago egin ziren, eta malko bat atera zitzaion. Bernardo Atxaga

Josafatek, **aldi batez** Jerusalemen egon ondoren, lurralde osoa ikuskatu zuen, Beer-Xebatik Efraimgo mendialderaino, jendea Jaunarengana, beren arbasoen Jainkoarengana, erakarriz. Elizen arteko biblia

-Aldi batez burgesiarekin bat egiteagatik, langileriak ez dik ezer galtzen, nik uste. Juan Kruz Igerabide

Aldi batez bere artean galdezka egona zen Flamel hori ez ote zen han nonbait egongo. Iñaki Mendiguren

Lehenik, **aldi batez** jardun gara zergatik mintzo garen jakin nahian, eta irakasteko edota gogoratzeko hitz egiten dugula aurkitu dugu. Imanol Unzurrunzaga

Zeren, nola **aldi batez** esklabo izan baitzen, eta bertze aldi batzez libre, bere baitaren baitarik jakin baitzezakeen Publilio Siriarrak berak ere zertaz ari zen. Joan Mari Irigoien

Har ezak atseden **aldi batez** eta jan, eta horrela prest egongo haiz ni itzultzen naizenerako. Agustin Otsoa

Feofar Khanek, pozik lehenengo garaipenekin, nahiago zuen **aldi batez** itxarotea Irkutsk aldera joan baino lehen? Karlos Zabala

Geografiaren eta historiaren gorabeherak **aldi batez** aldeko izan bazituzten ere, Portugal eta Espainia ez ziren iritsi beren jabetza berrietatik ateratako baliabide izugarriak kapitalizatzera. Koro Navarro

Orestes hori berori hartu zuen **aldi batez** bere idazkari Atilak, hunoen gerra-jaun ospetsuak. Iñaki Mendiguren

Hiriberri edo Villanueva de Arce herrian kondatzen dute nola **aldi batez**, kobrea edo urraidea ateratzen zuten toki batean, bazuten presa bat uraren biltzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Xanpaina aspaldi zen nire burura igorik, eta uste dut haririk gabe aritu nintzela **aldi batez**, pitokeriak eta barregarri izan nahi zuten kontu zentzugabeak botaz. Oskar Arana

Afalondoan, **aldi batez** haur eta **aldi batez** arrazoitsu, **aldi batez** jostari eta **aldi batez** sentikor, batzuetan baita libertin ere, plazer nuen irudikaturik zalduna bere haren-aren erdian dagerien sultan baten gisa. Jon Muñoz

Beste **aldi batez**, bota zizkioten itze txar batzu plazan gaindi, zango zolatik sartuko zituzkelakoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baina, halako **aldi batez**, Akitaniar idazle xorrotx batek idatzi zuen honela toutes les querelles sont grammairiennes, eta gainera, asko zekien politika gatazkez hitz horiek atera zituen Montaigneko jaunak. Piarres Xarriton

Nako gizon eta umeenganatu zen, azken **aldi batez** leihotik so zeudenei deiadarka: [...]. Itxaro Borda

Gure aita Frantzisko santua Portziunkulako Andre Maria elizatxoan bizi izan zen **aldi batez**. Askoren artean

Charlesi hots eginarazi diot telefonoz kontua argitzeko, izan ere, Brent Mexikon izana da **aldi batez**. Xabier Olarra

Luminantziaren bat-bateko aldakuntza bortitz bat pairatu behar duenean, begia "itsu" geratzen da **aldi batez**. Josu Zabaleta

Lo kukua egin dut, **aldi batez**. Javi Cillero

15 ***aldi berean*** *adlag* batera.

Aldi berean egin nintzen harritu eta harrotu. Aingeru Epaltza

Ezinezkoa baita **aldi berean** bi lekutan egotea. Ramon Saizarbitoria

Aldi berean, ordea, emoziozko erantzunak eta lotura gizatiarrak axalekoak edo ohitura hutsekoak dira harengan. Xabier Olarra

Aldi berean gara guztiok ahaide hurbil eta guztiok desberdin. Juan Garzia

Ez zegoen **aldi berean** hain berdin eta hain desberdin izaterik. Jon Muñoz

Hunkitua eta **aldi berean** ahalketua nintzen. Aingeru Epaltza

Ez dago ezer bat ere gorputzik gabea eta **aldi berean** hutsuneaz bestelakoa dei dezakezunik, hirugarren izaera berri bat bezalakoa litzatekeenik. Xabier Amuriza

Arimak bere burua ezagutzen duenean ez da ezagutze hori baino bikainagoa, bera baita ezagutzen duena eta **aldi berean** ezagutzearen objektu. Imanol Unzurrunzaga

Hizkuntza, hizketaren tresna eta **aldi berean** emaitza da. Isabel Arrigain

Gauza asko nahasten dira hor **aldi berean**: herri-kontalaritzaren aipamena, Döblinen idazkeran ahozkotasunak zuen garrantzia, obrak egituratzeko Döblinen bide parataktiko episodikoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Adierazle hauek geometrikoak eta zinetikoak dira **aldi berean**: informazio hauek ez dira tratatzen, beraz, erretinan, kortexean baizik. Josu Zabaleta

Zutabe hauek, **aldi berean**, hiperzutabetan daude multzokatuta; ehundaka zutabe dituzten multzoak dira hiperzutabe hauek. Josu Zabaleta

Elizako beiradura nagusia, zurixka, marrazkirik gabea, ilunduz joan zen; nabarmenduz, **aldi berean**, aldarean piztuta zegoen kandela lodiaren garra, ordu arte ikusezina. Bernardo Atxaga

Horren baitan dago arimaren ideia, zeina, **aldi berean**, *in actu* existitzen den gorputzaren ideia den. Piarres Xarriton

Zer ondorio izan dezaketen desorekek, denboratasun ezberdinek, iraupen ezberdinek; zer multzo ezberdinetan ager daitezkeen **aldi berean** osagai jakin batzuk. Xabier Arregi

Utopiaren abenturak gizakiago egiten gaituen **aldi berean**, El Doradokoak aberetu egiten gaitu, Colonek -giza irrikak- deskubritutakoa konkistatu behar pragmatiko bezain basatia ahalbideratzeko asmatzen baitira urrearen inguruko sineskeria eta fabulak. Anjel Lertxundi

1994an, EBko langabeen erdiak ia gutxienez urtebete zeraman enplegurik gabe; Estatu Batuetan, **aldi berean**, %10etik behera langile zeuden egoera horretan. Koro Navarro

Globalizazioa kapitalismoaren zabalkunde espazialaren adierazpen da, globoko muga guztiak gainditurik; baina, **aldi berean**, eta ororen gainetik, muga fisikoak eta arautuak saihesten, apurtzen, eta, azkenik, ezabatzen ditu, muga horiek kapitala mundu osoan metatzea eragozten baitute. Koro Navarro

Ez ditut lerro labur hauek bukatu nahi egileak, **aldi berean** lagun eta adiskide ditudanak, bihotzez zoriondu gabe. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lore eta fruitu, dena **aldi berean** ematen ari dira hurritzok. Patziku Perurena

Oro harrezko esperientzia ahalgarri baten apriorizko baldintzak **aldi berean** esperientziaren objektuen ahalgarritasunaren baldintzak dira. Ibon Uribarri

Baina hark eraikitzen duenean egintzazko arkitekto bilakatzen da, eta orduan hortik nahitaez segitzen da badela (**aldi berean**) eraikiriko zerbait. Xabier Kintana

Horrela pentsatzen da espazioa (izan ere, espazioaren zati guztiak amaigaberaino **aldi berean** baitira). Ibon Uribarri

Minoiko Ertain II-tik Minoiko Ertain III-rako trantsizioan bi idazkera hieroglifiko banatu, aurreko denboraldiaren hasieran **aldi berean** agertu zirenak, bat-batean eta erabat ordeztu zituen beste idazkera lineal batek (A Linealak). Iñaki Mendiguren

Emakume horiek zentzuz arras osasuntsuak izaten dira, eta adimenez **aldi berean** sendoak, alaiak eta jostariak. Jon Muñoz

Urte horretan itsasopeko telefono hariak aldi bereko 138 elkarrizketa "garraiatzeko" gai zen, baina Al Goreren eta Bushen arteko hauteskundeak nork irabaziko borrokan ari ziren mendearen azkenetan, hari hori gai zen milioi bat eta erdi elkarrizketa **aldi berean** jasateko. Pello Salaburu

Intentsitate handiagoan, abaila handiagoan bizi haiz, zerbait ari zaik barruan erretzen, bihotzak beste modu batera egiten dik taupada, eta **aldi berean** dena berdin zaik. Xabier Olarra

Kulunka ibili zuen altzoan, harik eta umeari begiak ixten hasi zitzaizkion arte, **aldi berean** bere begiak ere ixten zirela. Koro Navarro

Emazteak lasai onartzen zizkion halakoak; hunkigarria zen eszena, samurra eta zentzugabea **aldi berean**. Xabier Olarra

Oso susmagarria da, nolanahi ere, Teherandik autobus bi etortzea ia **aldi berean**, bata irandarrez beterik eta bestea zazpi gixajorekin. Jon Arretxe

1945etik aurrera, Singerren libururik gehienak yiddishez eta ingelesez agertu ziren **aldi berean**. Koro Navarro

-Badakik nola hasi nintzen soken kontu honekin? -errairen zidan osaba Joanikotek, segidan argibideak emaiten zizkidala, irritsu eta malenkoniatsu **aldi berean**-. Joan Mari Irigoien

Umbertoren abaildurarekin kutsatuta, agurra eta aitortza lotu nituen **aldi berean**: [...]. Anjel Lertxundi

Mutilei buruz zer esanik asko legoke, eta ez askorik, **aldi berean**. Josu Zabaleta

16 *aldi bereko itzulpen* ik **aldibereko itzulpen**.

17 ***aldi oro*** aldi guztietan.

Naturalezaren liburuarekin, aldiz, ez duk halakorik gertatzen, zeren, etengabe aldatuz doan arren, bere baitan baitirau, eta zeren, **aldi oro** berritzen ari delarik ere, beti-bat baita eta beti-berdin. Joan Mari Irigoien

Ukrainak behin eta berriro pairatu ditu krisiak, baina, **aldi oro** ere, irtenbide bat aurkitzeko borondate politikoa izan dugu. Berria - Mundua

San Damiango ahizpek **aldi oro** egin behar dute barau, ez bakarrik abendualdian edo garizuman. Askoren artean

Biltzar nagusiak hiru egunez behin egiten dira, **aldi oro** 2.000, 3.000 ikasle bilduz. Berria - Ekonomia

Aldi oro, soldadu uzbek bat pirripitaka zihoan lurrean barrena, lagunen amorraziozko garrasien artean. Karlos Zabala

Bestetik erakutsi nahi niolako neronek erabakitzen nuela **aldi oro** zein zen otsoa eta zein ardia. Karlos Zabala

Errausteko labe berri bat egiten den **aldi oro** eskaria emendatzen dela dio Weissek. Berria - Euskal Herria

Atzerritar bat azaltzen den **aldi oro**, laster egiten dute ezarria daukaten mugaraino, eta denak saiatzen dira heldu berriak hauta dezan. Koldo Izagirre

Natura hilak bizi dela iduri duen **aldi oro**, zirrara bereziz hunkitzen gaitu. Koldo Izagirre

Eta gauza agerietan ere hauteman dezakezu nola, gogoa ernai egon ezik, **aldi oro** apartaturik eta urrunean aldendurik bezala dagozen. Xabier Amuriza

Mikel ohartu zen **aldi oro** eskema bera errepikatzen zela: frantses gizon zahar bat, hirurogei, hirurogeita hamar urtekoa, hogei bat urteko probintzia pobreetako filipindar neska batekin. Ramuntxo Etxeberri

Frogak daude, andre horren gutunak aurkitu dituzte, fardel bat gutunez betea, eta dirua eskatzen zion Florenti, hamar eta hogei libera **aldi oro**. Karlos Zabala

Horixe zuen dohainik handiena: mila bider kontatuta ere, mila ahotan entzunda ere, modu desberdinean kontatzen zela aldiko, diferente entzuten zela **aldi oro**. Imanol Zurutuza

Begiak eta beharriak erne **aldi oro**, nehork ez dizu zure egitekoa trabatuko. Filipe Bidart

Aldiak oro zuk eginak dira eta **aldi oro** baino lehen zara; aldirik gabeko aldirik ez da inoiz izan. Imanol Unzurrunzaga

18 ***aldi orotan*** aldi oro, aldi guztietan.

Kantek dioenez, **"Aldi orotan** zer den zuzen eta oker, arauaren bitartez jakin beharra dago". Jenaro Garate

Aldi orotan zer den zuzen eta oker, arauaren bitartez jakin beharra dago, gure beharrei dagokiolako; eta ezin dugulako obligaziorik izan jakin ezin dugunari buruz. Jenaro Garate

Zigotoa izanik lehenbiziko zelula, zigotoko nonbaiten (kromosometan adibidez) egon beharko duela zerbait kodez idatzia esango dute zientzialari batzuek, baina ia aipatu gabe kode-arauen idazle nagusia, ezer harrotu gabe zigoto osoaren ibilera/eraldatze bilakaeraren berri -bere kromosoma multzoa eraldatzea barru-, **aldi orotan** izaki osoaren gida-buru bakar, orokor, iraunkor, holistikoa denaren berri. Jenaro Garate

19 ***aldi oroz*** aldi oro, aldi guztietan.

Pabera joaten den **aldi oroz**, bere agurra egiten diola prefetari, luzaz mintzatzen direla eta gizonki. Xipri Arbelbide

Munduaren endelegatze uneak segundo apurra baino ez dit irauten, baina **aldi oroz** xehakatzen nau. Itxaro Borda

Mirakulua **aldi oroz** bezala errepikatu da aldi honetan ere. Herria

Bi urtetarik egiten da "Haur kantu xapelketa", **aldi oroz** arrakasta handiarekin. Herria

Ahate zaharra **aldi oroz** itzulipurdikatzen zen. Piarres Aintziart

Ez ote da Espainiako hiri guztien patua **aldi oroz** bonbardatuak izatea? Koldo Izagirre

Ene ikuskizunetan ari naizelarik, harrabots batzuk entzuten ditut beharriak tente, denborarekin identifikatuko ditudanak... ate bat zabaltzen han urrun, berritz hesten, beste ate bat zabaltzen, berritz hesten, eta beste bat, beste bat, gero eta hurbilago, **aldi oroz** lau harrabots zabaltzean eta bat hestean, gero eta hurbilago, eta bat-batean, klanka!, ene atearen gaineko zerrapoa, klanka!, pekoa, klaska! klaska!, giltza zerrailuan eta zaintzale bat agertzen da atean. Herria

Orriara etorri bezain laster, hiritarrek ere, ukan ondoan ikusgarritik beren partea, erabaki zuten behar zela ongi miatu basahuntza **aldi oroz** egoiten zen leku hura. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nahiz eta formulazioetan baldintza gehiago erabili oraingoan, oro har, krisi handi bat den **aldi oroz**, telebista bere usaiako amnesian sartzen da, ez da gerraren tranpei aurre egiteko gai. Berria - Kultura

Eta nola, gizakiak bere bertuteak, hots, bere iharduteko ahalmena, kontenplatzen duen **aldi oroz** gure Poztasun hau errepikatzen baita, hortik dator ere, bakoitza bere ekintzak kontatzen eta bere Gorputzaren zein Izpirituaren indarrak erakusten loriatzea, eta, horregatik, gizakiak elkarrentzat gogaikarri gertatzea. Piarres Xarriton

Barkamena hitza ahoskatzen zuen **aldi oroz**, sistematikoki mutikoak Kerguelen komisarioa zeukan gogoan. Itxaro Borda

Molères apezpikua bera ere euskaraz mintzo zaigu ahal duen **aldi oroz**. Piarres Xarriton

Frantxua hilen zela uste zuen **aldi oroz**. Itxaro Borda

20 ***aldia egin***

Eta hara, 2003-ak bere **aldia egin** du...! 2004-ean sartu gira, mende berri huntako laugarren urtean beraz... Herria

Gernikako estatutuak bere **aldia egina** duela. Herria

Zer uste duzu?, dirurik onartuko dizudala nolabait ere mundu honetako **aldia egina** duten arima batzuen aldera? Jose Morales

Horko **aldia eginda**, ordea, ez da ezkerraldeko hormara inguratu. Pello Lizarralde

Eta baten batek bere **aldia egin**, altxatu eta alde egiten badu, airean tristura lorratz bat uzten duela esan daiteke. Joxean Agirre

Oloruek bere **aldia eginxea** zuen eta Ortheze ere ez zen galbidean luzatuko. Aingeru Epaltza

21 *aldika* ik **aldika**.

22 ***aldiko*** *adlag* aldi bakoitzean.

Alaba ez zuen komentuan hetsarazi familia desohoratu zuelako, baizik eta beren begiek elkar topatzen zuten **aldiko** botatzen zion so akusatzailea ezin jasanez gehiago. Elena Touyarou

Tranbiako gidariak ezkilari eragiten zion **aldiko**, bihotzak jauzi egiten zidan, ni banintz bezala tranbiak azpian harrapatzeko arriskuan zegoena. Anjel Lertxundi

Lau solairu igo behar genituen **aldiko**, saski banarekin, noski, hirurogeita hamaika eskailera-maila lehen hiru solairutan, eta hemezortzi maila azken terrazatik gora, burdinazko eskaileran gora. Pello Zabala

Ezin da hitz egin, komunetan ez bada, eta han ere oso luzaro ez: falta garen **aldiko**, kontuan hartzen dute, apuntatu egiten dute, erregistroan jasotzen. Eskarne Mujika

" entzuten duen **aldiko**, Mari Antonek gainetik kendu ezin duen bizkar-zama sekulako bati lotuta sentitzen du bere gorputza. Anjel Lertxundi

Gainera, txartelak ematen dizkigutenean ere, torpedo-fabrikan ematen diguten janariarekin berdin hilko gaituk goseak, **aldiko** pixka bat. Josu Zabaleta

23 *aldiz* ik **aldiz**[1].

24 ***Aurignac aldi*** *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Aurignac aldikoak dira koba honetako grabatuak; Euskal Herrian ezagutzen diren horma-artelanik zaharrenak dira. ETC-prentsa

30 mila bat urte inguruan, **Aurignac aldiko** kulturako gizabanakoak bazirela Lekeition. ETC-prentsa

Emaitzek diote **Aurignac aldiko** antzinako gizakiek egin zituztela hala grabatuak nola margoak. ETC-prentsa

Azkenik, beheko aldean, **Aurignac aldiaren** aztarna batzuk, Barandiaranek ikertu dituenak, jarri ditugu argi uzteko zein izan zen garaiko gizon-emakumeen bizimodua. ETC-literatura, saiakera

25 ***Aurignac-Perigord aldi*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Laperrako haitzuloaren kasuan (Karrantza), **Aurignac-Perigord** aldian egindako margoak aurkitu zituzten 1904an. ETC-prentsa

26 ***Azil aldi*** *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

Atarian, giza egoitza zenaren aztarnak eta industri hondakinak aurkitu dituzte, Madeleine eta **Azil aldietakoak**. ETC-prentsa

1935ean azaldu zen lehena, **Azil aldia** salatzen zuen geruza eta atxamarten artean. ETC-prentsa

Azil aldiari izena eman zion aztarnategia da. ETC-prentsa

Hor lortutako objektuak **Azil aldiari** atxiki zitzaizkion -Goi Paleolitoko azken garaia, duela 10.000-8.000 urtekoa-. ETC-prentsa

Jakina, honek ez du esan nahi genealogia kolektiboaren parte bat ez datorrenik Madeleine eta **Azil aldietako** ehiztari-biltzaileengandik, baina ez parte nagusia. ETC-literatura, saiakera

Azil aldian hezurrezko tresneria asko gutxitu zen, ikerlari askoren iritziz, adar edo hezurren ordez zura erabiltzen zutelako. ETC-entziklopedia

27 ***azken aldian***

-Egizu kontu, antzemanik nengoen gauza arraroren bat bazuela **azken aldian**. Irene Aldasoro

Aimarrek eta biok finalari buruz hitz egin dugu, **azken aldian** entrenamendu on pare bat egin ditugu eta nola jokatu behar dugun zehaztu dugu. Berria - Kirola

Hotsaren ezaugarri fisikoen ezagutzarako, ezinbesteko zaizkio fonetikariari **azken aldian** ordenagailuen iker-eremuan arras aurreratu diren tresnabidezko teknikak.

Lourdes Oñederra

Duda-mudan ibili zara harik eta baietz esan diozun arte, gero eta egunkari gutxiago saltzen dela, askoren ustez **azken aldian** Londresera iristen diren egunkariek hamaika gezur, ikuspegi murritz ugari eta albiste interesgarri gutxi dakartzatelako. Lutxo Egia

Azken aldian, baina, biolontxeloa eta bere gitarra eta ahotsa biltzen dituen formatuarekin ari da zuzenean jotzen. Berria - Kultura

Kanariar Uharteetara **azken aldian** iristen ari den immigrante uholdea eteteko bi herrialdeen arteko harremanak sendotzeko konpromisoa hartu zuten. Berria - Mundua

Long Beacheko polizia departamentuan zebilen **azken aldian**, baina utzi egin omen zuen lana. Javi Cillero

Josu R sendoa zen berez, **azken aldian** pixka bat gizenduta zegoen baina. Pedro Alberdi

28 *beltz-aldi*

Bi irudi mota horien arteko oinarrizko desberdintasuna ez datza ez fotogramen arteko **beltz-aldian**, ez bideoaren argi-eskaneatzean, elkarren segidako irudien agertzeko maiztasunean baizik. Josu Zabaleta

Asko azpimarratu da, adibidez, bideo-apailuan elkarren segidako irudien artean **beltz-aldirik** ez izatea, eta irudi hori tiraldi etenez eragina ez izatea. Josu Zabaleta

29 *bere aldia egin*

Eta hara, 2003-ak **bere aldia egin** du...! 2004-ean sartu gira, mende berri huntako laugarren urtean beraz... Herria

Gernikako estatutuak **bere aldia egina** duela, beste gisako harreman batzu behar direla finkatu Madrilerekin... Herria

Eta baten batek **bere aldia egin**, altxatu eta alde egiten badu, airean tristura lorratz bat uzten duela esan daiteke. Joxean Agirre

30 *egokitzeko aldi*

Azaroaren 18a arte iraungo du haurrak **egokitzeko aldiak**. Berria - Euskal Herria

31 *eskolatze-aldi* *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi)*

Esperientziak eta ikerketek frogatu dute egokiena D eredua izan dela, eredu horrek bakarrik bermatzen duelako **eskolatze-aldia** amaituta ikasleek euskara nahiz gaztelania menderatzea. ETC-literatura, saiakera

Anaiarte Musulmanarentzat, haur frantses bakoitzak izan behar du, bere **eskolatze-aldiaren** hasieratik azkenera arte, irakaskuntza islamikoa jasotzeko aukera. ETC-literatura, saiakera

Hortaz, testen emaitzetan bakoitzaren **eskolatze-aldia** islatzen zen. ETC-literatura, saiakera

Ikasleek **eskolatze-aldia** amaitzerakoan lortuak behar zituzten gaitasunak eta trebetasunak zehaztasun handiegirik gabe zeuden jarriak. ETC-prentsa

Eredu horrek unibertsaltasun printzipioa defendatzen du, hau da, derrigorrezko **eskolatze aldian** dauden ikasle guztiak biltzen dituen eredua, eta helburu nagusi kirol kultur iraunkorra ezartzea du. ETC-prentsa

Hala, 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, honela definitzen du eskola kirola: "ikasleek nahitaezko **eskolatze aldian** irakasteko orduetatik kanpo egiten duten kirol jarduera antolatua". ETC-prentsa

Oinarrian, ikasleek nahitaezko **eskolatze aldian** irakastorduetatik kanpo egiten duten kirol jarduera antolatua da Eskola Kirola. ETC-prentsa

Eskolatze-aldia luzeagoa izatea, eta, eskolatze horren bitartez, neska-mutil guztiak urrutiagora iritsi ahal izatea, horiexek ziren lehentasunez lortu beharreko helburuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Derrigorrezko **eskolatze-aldiak** 3 urte gehiago edukiko ditu (9tik 12ra). ETC-zientzia, zuzenbidea

Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko **eskolatze-aldia** betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

32 *ezintasunezko aldi* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Sexu harremanetan, **ezintasunezko aldia** edo aldi etorgaitza orgasmoa izan ondoren, gizonak sarpena berriz ere burutzeko duen ezintasunaren iraupenari deritzo. ETC-entziklopedia

33 *Goi Madeleine aldi* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Nahiko denbora tarte itxian erabiltzen den konbentzionalismo bat da basahuntza: Erdi Madeleine aldiaren amaieraren eta **Goi Madeleine aldiaren** artean. ETC-prentsa

34 *guarda aldi*

Mardokeori buruzko pasartea aurkitu zuen: nola jakinarazi zion Mardokeok erregeari bi funtzionario haiek, beren **guardaaldia** egin bitartean, Artaxerxes erregea hiltzeko asmotan ibili zirela. Elizen arteko biblia

35 *guardia aldi* guardia egiten den aldia.

Eta agindu zuen **guardia**-aldiak kontu handiz egiteko. Askoren artean

Gaueko **guardiaaldian** telegrafistari gonak altxatu eta ipurdian geltokiko zigiluak jarri zizkiola. Fernando Rey

36 *hemengo aldi*

Zerk hakar **hemengo aldi** hain goizetik? Juan Garzia

-Hemengo aldi, Joanes -agurtu ninduen nire izenkide Leizarragak. Aingeru Epaltza

Zer, **hemengo aldi** -galdegiten dio ostalariak, baitzuen aste andana bat ez zuela ikusi. Eneko Bidegain

-Zer habil, gizona, **hemengo aldi**? Joxe Austin Arrieta

37 *hezkuntza aldi* *(orobat **hezkuntzaldi**)*

Hala, lehen **hezkuntza aldia** urtebete luzatzea proposatu dute. Berria - Gaiak

Iztuetaren arabera, xedea da ikasleek 16 urterekin derrigorrezko **hezkuntzaldia** amaitzea «euskaraz ingelesezko First ziurtagiriaren antzeko maila dutela bermatuta» Berria - Euskal Herria

38 *hondar aldian*

Hondar aldian ohi nuenez, haren bixkarra xaflatu nuen, polliki, semearekin baino areago adiskidearekin ari nintzelako antzezte baldarrean. Aingeru Epaltza

Urduri zarete **hondar aldian**, operaziotik itzuliak eta betiko bizimoldera guztiz laketu gabe oraino. Xabier Montoia

39 *ilargiaren aldi*

Eta **ilargiaren aldia** iritsi zenean, kapitainek ulertu zutelarik zaindariak erdi lo zeudela, denok lekuak hustu genituen, sakanean morroiak zaldiekin baizik ez ziren gelditu. Jon Alonso

Gabonaldi osoa eta Erregenean barrena, egutegiko hilabeteak ez baino, **ilargiaren aldi** osoa da hemen markatzen dena. Pello Zabala

40 *inkubazio aldi* *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Bi aste inguruko **inkubazio-aldia** dauka gaixotasunak. ETC-prentsa

Baina kasurik gehienetan, 2-3 asteko **inkubazio aldiaren** ondotik, birusa odolera pasatzen da. ETC-prentsa

Azterketak, hain zuzen, gaixoak **inkubazio aldia** non eman zuen argitu du. ETC-prentsa

Inkubazio-aldia: infekzioa gertatu eta sintomak agertu arteko denbora-tartea da **inkubazio-aldia**. ETC-zientzia, zuzenbidea

90 minutuko **inkubazio aldia** pasa ondoren, plaka atera eta mikroskopio optikoan behatu da zelulen atxikipena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Urtarrilaren 31an, kutsagarritasunari, hilkortasun tasari, **inkubazio aldiari**, mundu mailako hedapen gaitasunari eta txertoa sortu arte beharko den denborari buruzko ikuspegi orokor bat argitaratu zen, birus berria antzinakoekin alderatzen dituena. ETC-entziklopedia

COVID-19 gaitzaren gehienezko **inkubazio-aldia** bi aste dira. ETC-entziklopedia

GIB bidezko infekzioak lau fase desberdin ditu: **inkubazio aldia**, infekzio akutua, latentzia aldia eta HIESa. ETC-entziklopedia

Medikuntzan, inkubazio epea edo **inkubazio aldia** mikrobio batek infektatzen duenetik -hots, gure gorputzean sartzen denetik- seinale edo sintomak agertu arte pasatzen den denbora-tarteari deritzo. ETC-entziklopedia

41 *kolera aldi*

Haren **kolera** aldiak aintzat hartu beharrekoak ziren. Patxi Zubizarreta

Atzera berriz sumintzeko zorian egon zen, baina neskaren beste **kolera** aldi baten beldur izan zen. Patxi Zubizarreta

42 *lau aldiko motor* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Lau denborako motorra edota **lau aldiko motorra** ziklo oso bat burutzeko lau denbora edo aldi behar dituen aldizkako barne-errekuntzadun motor-mota bat da. ETC-entziklopedia

Lau aldiko motorrek hasiera hobea dute, eta gero atzetik ibili behar izaten duzu aurre hartzeko. ETC-prentsa

43 *Madeleine aldi* *(corpusean ez dago; ETCn **219** agerraldi)*

Madeleine aldia Mendebaldeko Europako Goi Paleolito amaierako kultura arkeologikoa izan zen. Izena Tursaceko La Madeleine haitzulotik datorkio. ETC-entziklopedia

Aro horretan **Madeleine aldiko** garaiko lepokoak aurkitu zituzten, eta aztarnategiaren garrantzia bistan geratu zen. ETC-prentsa

Madeleine aldiko mundu espiritualaren lekuko ederra da haitzuloa. ETC-prentsa

Besteak beste **Madeleine aldiko** (15.500 urte) leopokoak aurkitu zituzten Praileaitzen, eta han indusketa lanean jarraituko dute, ia urtebeteko etenaldiaren ondoren (iazko ekainetik ez da lan arkeologikorik egon). ETC-prentsa

Praileaitzen **Madeleine aldiko** aurkikuntza gehiago egiteko itxaropena piztu da. ETC-prentsa

Besteak beste, animalia ezberdinak irudikatzen dituzten **Madeleine aldiko** 50 bat irudi daudela jakinarazi du Unai Rementeriak, Bizkaiko ahaldun nagusiak. ETC-prentsa

Behe **Madeleine aldiko** une bateko argazki bat berreskuratu eta aztertzeko aukera eman zigun. ETC-prentsa

Eta susmatzen hasi ziren **Madeleine aldikoak** ere egon zitezkeela. ETC-prentsa

Zehatzago esanda, **Madeleine aldikoa**: duela 14.000 urte ingurukoa. ETC-prentsa

44 *Moustier aldi* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Erdi Paleolitoko **Moustier alditik** Brontze Arorainoko harrizko tresnak bildu ditu Bilboko Euskal Museoak. ETC-prentsa

Modu horretan, beste aukera bat zabaltzen da orain: ongi kontserbatuta badago, jatorrizko aztarnategia aurkitzekoa; bai Goi Paleolitokoa (duela 10.000 eta 35.000 urtekoa), bai **Moustier aldikoa** ere (duela 45.000 eta 180.000 urtekoa). ETC-prentsa

Haren gainaldearen zati handi batean ikerkuntza arkeologikoko lanak egin dira, eta argi eta garbi **Moustier aldiko** kokaleku bat igarri da bertan, Neanderthalgo gizakiak Bizkaian utzitako aztarnarik zaharrenetako batzuez gain. ETC-entziklopedia

Kultura-segida horretan, zeramika-aldiak, Azil aldia, Amaierako Goi Madeleine aldia eta **Moustier aldia** ageri dira. ETC-entziklopedia

Olha izeneko tokian historiaurreko bizilekua dago. Mousteriar edo **Moustier aldiko** hezur eta harri landuak atzeman dira bertan. ETC-entziklopedia

45 *praktika-aldi* *(orobat **praktikaldia**)* praktikak egiten ematen den aldia.

Jonas Weinberg hogeietan oso aurrera zihoan ordurako, mediku peto-petoa zen eta **praktika-aldia** amaitzen ari zen *Bellevue Hospital* erietxean. Oskar Arana

Nik, bederen, zuzendariari proposatuko zioat, **praktikaldia** bukatuta, egunkarian erredaktore geldi dadin. Aingeru Epaltza

46 *Solutre aldi* *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Solutre aldia hego-mendebaldeko Europan izandako Goi Paleolitoko kultura arkeologikoa izan zen. Izena Solutré-Pouillyko "Crôt du Charnier" haitzulo leizetik datorkio. ETC-entziklopedia

Clovis punta -zeinak Europako **Solutre aldiko** puntekin antzekotasun batzuk baititu- elementu gakoa izan da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehenengo jostorratzak -irizpide morfologikoaren arabera, behintzat- Gravettiar aldia amaituta sortu eta erabili zituzten, **Solutre aldian** (duela 15.000-21.000 urte gutxi gorabehera). ETC-prentsa

Ikertzen ari dira oraindik, baina, printzipioz, **Solutre aldikoak** dira Danbolinzuloko marrazkiak, duela 18.000 urte ingurukoak, eta garai berriagokoak dira Ekaingo marrazkiak, duela 13.000-14.000 urtekoak. ETC-prentsa

Solutre aldikoak izan daitezkeen marrazki ez figuratiboak aurkitu ditu Aranzadi Zientzi Elkarteak. ETC-prentsa

Solutre aldiko maila ikertzeke dago, duela 17.000 urtekoa, eta 25.000 urteko maila bat ere bada aztarnategian, Gravette aldikoa. ETC-prentsa

19.330 eta 17.760 urteko bi datatze ere lortu zituzten, **Solutre aldikoak**. ETC-prentsa

47 *solutrear aldi* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Leize nagusia Altamirakoa da, Santillana del Mar udalerrian, Kantabrian. Magdaleniar eta **Solutrear aldietako** labar-artea dago bertan, Goi Paleolito garaikoa. ETC-entziklopedia

Azkonzilon, aldiz, **Solutrear aldiko** maila segida garrantzitsua aurkitu da duela gutxi egindako indusketetan. ETC-entziklopedia

48 *titi-aldi* titia emateko aldia.

Nerea eta biok nobelaren azken partea gaueko **titi**-aldien arteko ordu eskasetan amaitu nuen. Ana Urkiza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

airetik aldi (9); **aldi bakanetan** (24); **aldi bakarra** (13); **aldi bakarrean** (11); **aldi bakoitzean** (80); **aldi bakoitzeko** (16); **aldi bat** (246); **aldi bat baino** (62); **aldi bat gehiago** (43); **aldi batean** (78); **aldi bateko** (31); **aldi baten** (25); **aldi baten buruan** (14); **aldi batera** (16); **aldi baterako** (363); **aldi baterako kontratuak** (20); **aldi baterako lan** (25); **aldi baterako laugarren** (12); **aldi baterakoak** (26); **aldi baterakoak izan** (10); **aldi batez** (259); **aldi batzuetan** (15); **aldi berean** (3165); **aldi berean bere** (29); **aldi berean beste** (16); **aldi berean bi** (16); **aldi berean egin** (13); **aldi berean eta** (25); **aldi berean ez** (20); **aldi berean ezin** (9); **aldi berean gure** (9); **aldi berean oso** (9); **aldi bereko** (61); **aldi berri** (12); **aldi eta** (25); **aldi guziz** (31); **aldi guztietan** (20); **aldi hartako** (9); **aldi hartan** (215); **aldi hau** (11); **aldi honetako** (16); **aldi honetan** (228); **aldi honetan ere** (19); **aldi hori** (22); **aldi horretan** (58); **aldi huntako** (23); **aldi huntan** (444); **aldi huntan ere** (51); **aldi huntan ez** (14); **aldi huntan haatik** (10); **aldi hura** (12); **aldi izanen** (12); **aldi labur** (26); **aldi labur batez** (13); **aldi luze** (28); **aldi luzea** (11); **aldi luzeak** (10); **aldi oro** (76); **aldi oroz** (75); **aldi zen** (25); **azken aldi** (82); **azken aldi honetan** (55); **baina aldi** (264); **baina aldi berean** (225); **baina aldi honetan** (14); **bainan aldi** (17); **bainan aldi huntan** (12); **baita aldi** (11); **baitzen aldi** (9); **bat aldi** (24); **bat aldi berean** (13); **bere aldi** (9); **bertze aldi** (12); **beste aldi** (60); **beste aldi bat** (10); **beste aldi batean** (12); **beste aldi batez** (14); **bi aldi** (12); **bigarren aldi** (15); **da aldi** (84); **da aldi berean** (40); **den aldi** (34); **dena aldi** (10); **dira aldi** (40); **dira aldi berean** (16); **diren aldi** (16); **du aldi** (24); **du aldi berean** (11); **duen aldi** (21); **dute aldi** (23); **duten aldi** (11); **edo aldi** (14); **egon zen aldi** (9); **ere aldi** (25); **ere aldi berean** (10); **eta aldi** (656); **eta aldi bakoitzean** (10); **eta aldi bat** (10); **eta aldi baterako** (33); **eta aldi batez** (13); **eta aldi berean** (481); **eta aldi huntan** (23); **ez aldi** (12); **guztiak aldi** (11); **guztiak aldi berean** (11); **handik aldi** (11); **handik aldi batera** (11); **hiru aldi** (12); **ia aldi** (35); **ia aldi berean** (31); **izan aldi** (9); **lehen aldi** (18); **lehen aldi hartan** (11); **nintzen aldi** (19); **nuen aldi** (14); **oso aldi** (9); **zela aldi** (14); **zen aldi** (92); **zen aldi batez** (20); **zen aldi berean** (18); **zion aldi** (10); **ziren aldi** (30); **ziren aldi berean** (10); **zituen aldi** (19); **zuen aldi** (44); **zuten aldi** (28)

aldia baita (17); **aldia baitzen** (15); **aldia balitz** (15); **aldia balitz bezala** (12); **aldia da** (348); **aldia da euskal** (9); **aldia da hau** (12); **aldia dela** (15); **aldia du** (35); **aldia ere** (12); **aldia eta** (16); **aldia ez** (15); **aldia holako** (11); **aldia izan** (77); **aldia izan da** (20); **aldia izan zen** (28); **aldia izanen** (18); **aldia izango** (93); **aldia izango da** (42); **aldia nuen** (10); **aldia zela** (18); **aldia zen** (164); **aldia zen hura** (9); **aldia zuen** (31); **aurreneko aldia** (83); **aurreneko aldia zen** (19); **azken aldia** (72); **azkeneko aldia** (15); **bere aldia** (17); **bigarren aldia** (100); **bigarren aldia da** (37); **bigarren aldia izango** (10); **bigarren aldia zen** (14); **bosgarren aldia** (12); **da lehen aldia** (90); **da lehenengo aldia** (26); **den lehen aldia** (43); **den lehenengo aldia** (9); **diren lehen aldia** (10); **duen bigarren aldia** (9); **duen lehen aldia** (33); **duten bigarren aldia** (9); **duten lehen aldia** (25); **estreinako aldia** (25); **eta lehen aldia** (10); **hirugarren aldia** (50); **hirugarren aldia da** (18); **laugarren aldia** (20); **lehen aldia** (750); **lehen aldia baitzen** (9); **lehen aldia da** (192); **lehen aldia du** (10); **lehen aldia holako** (9); **lehen aldia izan** (24); **lehen aldia izanen** (10); **lehen aldia izango** (29); **lehen aldia zela** (10); **lehen aldia zen** (60); **lehen aldia zuen** (15); **lehenbiziko aldia** (82); **lehenbiziko aldia da** (10); **lehenbiziko aldia zen** (20); **lehendabiziko aldia** (49); **lehendabiziko aldia da** (9); **lehendabiziko aldia zen** (10); **lehenengo aldia** (195); **lehenengo aldia da** (25); **lehenengo aldia izan** (9); **lehenengo aldia izango** (14); **lehenengo aldia zen** (20); **nuen azken aldia** (9); **nuen lehen aldia** (13); **seigarren aldia** (9); **zen lehen aldia** (28); **zen lehenengo aldia** (13); **zuen lehen aldia** (34); **zuen lehenengo aldia** (11)

aintzineko aldian (11); **aldian aldian** (99); **aldian aldiko** (53); **aldian aldiko** (53); **aldian baino** (20); **aldian behin** (255); **aldian bezala** (37); **aldian ere** (16); **aldian ez** (20); **aldian x** (60); **aldian x eider** (9); **aldian x marian** (10); **aldian x mikel** (13); **aldietan bezala** (10); **argi aldian** (60); **argi aldian x** (60); **aurreko aldian** (33); **aurreko aldian bezala** (11); **aurreko aldietan** (14); **aurreko aldiko** (9); **aurreneko aldian** (21); **azken aldian** (292); **azken aldietan** (17); **azken aldiko** (41); **azken aldiotan** (15); **azkeneko aldian** (20); **bat alditan** (11); **bere aldian** (36); **bi aldietan** (28); **bi alditan** (35); **bigarren aldian** (35); **den aldian** (14); **eta aldian** (42); **eta aldian aldian** (10); **eta aldian behin** (25); **eta azken aldian** (12); **hainbat alditan** (58); **hiru alditan** (29); **hirugarren aldian** (11); **hurrengo aldian** (18); **inkomunikazio aldian** (14); **joan den aldian** (9); **joanden aldian** (20); **lau alditan** (12); **lehen aldian** (81); **lehenbiziko aldian** (12); **lehendabiziko aldian** (11); **lehenengo aldian** (25); **oraingo aldian** (11); **pare bat alditan** (10); **zenbait alditan** (16); **zuen aldian** (9)

---

aldiaka ik **aldika**.

---

aldiako ik **aldi 12**.

---

aldian 1 *adlag* aldi bakoitzean.

Bertze batzuek alditz, egun osoko atxikitzen zuten eta **aldian** puxka bat jaten. Eneko Bidegain

Txandan-txandan hartuko ditinagu, **aldian** urre pilatxo bana. Karlos Zabala

Berdin munta nola nahi zuen apailatu, lehenik urrunekoak bilduz edo aldiz hurbilekoak, bainan beti harri bat bakarrik **aldian**. Herria

Beraien oinetan, Bran artzanorak hotsaren alderantz tentetuta zeuzkan belarriak, **aldian** kilikazko "guau" bat, **aldian** txundidurazko "bof" bat egiten zuelarik. Joanes Urkixo

Oraiko sareekin alimaleko tornuak ekar ditazke **aldian**. Menane Oxandabaratz

2 *aldian aldi*

Bide hertsia eta **aldian aldi**, lanak errepidean. Berria - Euskal Herria

Akitaniak eta Kontseilu Nagusiak laguntza kotsia ematen zuten **aldian aldi**. Berria - Euskal Herria

Aldian aldi, erregularki, 85 pertsona ingururen jarraipena bermatzen du Resodabanta sareak, anorexia eta bulimia kasuak batuta. Berria - Euskal Herria

3 *aldian-aldian* *(orobat **aldianaldian** g.er.)* aldian behin, noizean behin, eskuarki maiztasun jakin batez.

Aldian-aldian txostenak egin behar ziren, lanen martxaren berri emanez. Juan Garzia

Lurraren eremu magnetikoa aldatu egiten da, **aldian-aldian**, bere ziklo partikularren arabera. Pello Zabala

Batzordeak **aldian-aldian** egingo ditu bilerak. Berria - Euskal Herria

Pentsioa **aldian-aldian** eguneratzen bazen, bizimoduaren kostuaren igoeragatik gertatzen zen eta ez bestelako kontsiderazio bereziengatik. Bego Montorio

Atzoko bileraren ostean, klusterrak **aldian-aldian** batzartuko dira. Berria - Ekonomia

Ramsay andrea jiratu, badiaz bestalde begiratu, eta hantxe, zalantzarik gabe, olatuetan barrena **aldian-aldian** bi distira azkar eta ondoren luze iraunkor bat bidaliz, faroko argia zegoen. Anton Garikano

1967-1968 inguru hartan Madrilen bizi ginen eta, hemen aipatzea harira ez letorkeen arrazoiengatik, **aldian-aldian** etortzen zitzaigun bisitan unibertsitateko sindikatu demokratikoko ikasle-jende gaztea eta artean klandestinoa zen Comisiones Obreras sindikatuko militanteetarikoa. Juan Garzia

Haien ahaideak, **aldian-aldian**, beren herrixketatik etorri ohi ziren, zazpi egunetako zaintzaldiak haiekin batera egitera. Elizen arteko biblia

Horregatik publikatzen zuen **aldian-aldian** halako miszelanea bat. Unai Elorriaga

Niri, **aldian-aldian**, erlijio gaiekin adarra jotzeko gogoa etortzen zitzaidan, baina ama oso haserretuko ote zitzaidan beldur nintzen, Hiru hegaztien hegada alderraiak desitxuratzen zuen **aldian-aldian** ilargiaren itxura onkotea. Juan Kruz Igerabide

Bere ziegan segitzen du, armiarmak solaskide bakartzat, Cleopatra zigarroak errez, **aldian-aldian**, ardo gozo-gozo bat dastatzen ariko balitz bezalaxe, bere pitxarretik ur tragoak eginez. Pablo Sastre

Aldian-aldian etortzen zituan Amazoniara, espezie babestuz hornitzeko; saltzea debekatuta dauden horietaz, alegia. Jon Muñoz

Alde banatako zumarrek itzal eskergarria eskaintzen diete ibiltariei: **aldian-aldian** bidea zeharkatzen dute itzal bila, bidearen bihurguneetako norabide-aldaketek behartuta. Anjel Lertxundi

Nik nahiago nuen **aldian-aldian** neure bidea asmatzea, mugimendu-gerrazko erasoaldi zorrotzak jo bat-batean han-hemenka, kokapen-gerraren errutina nekagarrira makurtu ordez: zilarbizia tantatxotan sublimatzea, sodioa kloruro bihurtu eta osatzen dituen taulatxo kristal-saretuetan ezagutzea mikroskopiora. Juan Garzia

Batzuetan, Gaspard zaharra, bere fusila hartu eta orkatz bila ateratzen zen; **aldian-aldian** baten bat botatzen zuen. Josu Zabaleta

Lau polizia zeuden erdian zutik, eskuan koadernotxo bana zutela aztertzen ari ziren, **aldian-aldian** elkarrekin hitz egin eta idatzi egiten zuten. Josu Zabaleta

Neroni ere harrigarri zitzaizkidan buru betidanik makets horretan **aldian-aldian** distiratzen ziren adimen-txinpartak. Aingeru Epaltza

Askabiden egin dugun ikerketa baten arabera, 17 eta 51 urte arteko emakumeen % 80,4k adierazi dute inoiz masturbatu direla, eta bikotekidea duten emakumeen % 64k harreman sexualak izanda ere **aldian-aldian** masturbatzen direla esan dute. Luis Elberdin

Uda parteko igande arratsaldeetan denbora pasa egoten zena txalupan eserita, salabardoan garagardobotila sartzen zuen, **aldianaldian** salabardoa atera eta basoa garagardo freskoz betetzen zuen, gero zutik jartzen zen txalupan. Fernando Rey

Bagoiek itzala egiten zidaten, **aldianaldian** agerian uzten ninduten eta dardaran hasi nintzen, ahoa ttuz bete zitzaidan, horren guztiaren hasiera osaba Nonemanen etxean gertatu baitzen, Fernando Rey

4 *aldian aldika*

Aralarko herensuge zar hari ere hala eramaten omen zioten, **aldian aldika**, Barranka aldeko herri bakoitzean bereizitako neskatxarik ederrena. Patziku Perurena

Euskal Herritar guziek dugula azkenean erabakiko **aldian aldika** gure etorkizuna (geroa) herri-kontsulta edo erreferendum baten bidez. Herria

Aldian aldika gizakiari berez eta izadi legez datozkion gerta behar horiek ni horrela eragitea txit gogaikarri zitzaidanez, min berriz samintzen ninduen ene minak eta bi goibelaldik torturatzen ninduten. Imanol Unzurrunzaga

5 *aldian aldiko* *izlag* aldiaren araberakoa.

Halako kasuetan ere, arriskua, halakorik izatekotan, **aldian aldiko** ezaguera berriaren aplikazioan legoke funtsean, ez ezagueran berean. Juan Garzia

Arrasto horietako batzuk hezur muinetan sartuta daramatzat, noiz isil noiz kurrinka, **aldian aldiko** aldartearen arabera. Joxerra Garzia

Emanen ditugu hemen **aldian aldiko** berriak. Herria

Zapaterok esan du bakarrik gobernatuko duela PSOEk, **aldian aldiko** babesak bilatuz. Berria - Euskal Herria

Saminak, bere eskuzabaltasunean, **aldian aldiko** su-etenak baino ez ditu onartzen. Markos Zapiain

Lehengo egia zaharrari ezezkoa eman ziolako maite dugu Galileo Galilei, egia guztiak behin-behineko direla irakatsi zigulako, eta, **aldian aldiko** inkisidoreen aurrean, ezetz esaten ahopetik. Joxerra Garzia

Ez, inork ez gaitu libratzen eguneroko zeremonia ttikietatik, inork ere ez **aldian aldiko** zeremonia handietatik. Patziku Perurena

Bestela esanda: elementuak, galaxiak, izarrak, Lurra sorrarazi duten **aldian aldiko** gertakarien sekuentzian haietariko batzuk gauzatu ez balira, gerta zitekeen ez izatea hostorik zuhaitzetan, ez eta zuhaitzik ere, ez eta, apika, mundu bizirik batere. Juan Garzia

Publikoa ez da sekula bere buruaz fio, **aldian aldiko** txoroboladak darama arrastan. Patziku Perurena

Aldian aldiko eta tokian tokiko inperioen dogma estuak direla medio, zenbat holako usario eder galdu ote ditu gure Europa zaharrak bidean, nahiz axalez martingala hutsak iduri, sustraietara jo ezkero bostetan milaka urtetako jakintza enpiriko ederra gordetzen dutenak! Patziku Perurena

Lehengo egia zaharrari ezezkoa eman ziolako maite dugu Galileo Galilei, egia guztiak behin-behineko direla irakatsi zigulako, eta, **aldian aldiko** inkisidoreen aurrean, ezetz esaten ahopetik. Joxerra Garzia

· *adlag* -Neska bat engainatzen du **aldian aldiko**. Anjel Lertxundi

6 *aldian aldiro*

Baina amore eman nion, bestela **aldian aldiro** zuzentzen baitzidan nirea. Joxe Austin Arrieta

-Aldian aldiro ematen didate haren berri, baina... Jon Muñoz

7 *aldian askotan*

Hitzetatik esapideetara ere egiten du salto desitxuratze honek, **aldian askotan**. Iñaki Arranz

8 *aldian baino aldian*

Bigarren pernod bat eta bai hirugarrena ere edan zituen eta **aldian baino aldian** ur gutxiago botatzen zion edariari, eta laugarrena eskatu zuenean ez zekien ja zenbat edan zituen, bi, bost edo sei baso edan ote zituen. Matías Mujika

9 *aldian behin* *adlag* noizean behin.

Hamalau urte nituen, eta maisua gure etxera etortzen zen **aldian behin**, ene amarekin hitz egitera. Joan Mari Irigoien

Beraz aita gehiago maite duzu ni baino? -esaten du, **aldian behin**, Lepic andreak. Itziar Otegi

Haien aurretik pasaeran, irakasleren baten jardun ozena, eta, **aldian behin**, ikasleen murmurioak. Anjel Lertxundi

Egun ere, **aldian behin**, Alatz Hondarribiko hondartzan ibiltzen omen da, paseatzen batzuetan, sareak egiten besteetan. Martin Anso

Errepidean auto bat ikusten du **aldian behin**. Alberto Barandiaren

Aldian behin geldialdia tokatzen da. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez genuen serioegi hartzen, baina ideia **aldian behin** agertzen zen gure solasaldietan. Juan Martin Elexpuru

Aldian behin, Jacques Monod-ekin eztabaidatzen nituen kontuok. Juan Garzia

Aldian behin, kanabera bat harturik, bela nagusien sokak jotzen zituen, haietan izotzik egin ez zedin. Anjel Lertxundi

Aldian behin, albo batera begiratu, eta obispoa ikusten nuen aingeru bat bezala lo; Roman zeukan aldamenean, eta noiz edo noiz begiak zabaltzen zituen hark. Inazio Mujika Iraola

Aldian behin milaka tanta suizidarazten ditu Euriak, hortxe dagoela demostratzeko, besterik gabe bere ospea areagotzeko, zerbait izaten jarraitzeko, milaka tanten buru-hiltze tragikoaz ohartzeko. Unai Iturriaga

Halako abantadak zeuzkan aitak, etxean berak agintzen zuelakoa egin behar izaten zuen **aldian behin**. Koldo Izagirre

Aldian behin hari begiratu eta erlojuaren estalkia ixtearekin batera bere begiak ere erlojuan gordetzen zituela zirudien. Harkaitz Cano

Aldian behin bide ertzean edo arboladi txikien abaroan ikusten diren etxeengatik ez balitz, bidaiari arrotzak pentsatuko luke landotan ez dela inor bizi. Anjel Lertxundi

Neskato haren gurasoek begi zorrotzez zaintzen zuten, eta **aldian behin** zituzten ezkutuko topaketak sutsuak izaten ziren. Ibon Uribarri

Aldian behin bisita eginik kitatu nahi izaten dute batarekiko zein bestearekiko zorra. Joxerra Garzia

Hemen, ontzi honetan, **aldian behin** egin dizkidazun oparitxoak dauzkat gordeta, behar bezala zenbatuta eta etiketatuta. Antton Olano

10 *aldian behingo/behineko*

Mailaketa horretan **aldian behineko** hatzaren zuritasunarengandik, nekrosi zantzu nabarietara iristen da, infekzioa eta aurre nekrosia igaroz. Berria - Kirola

Antonio Zavalak bere magnetofoian jasotako kasu horiek ez dira inondik ere bitxiak edo **aldian behingoak**. Bernardo Atxaga

Martari ez dio hizketarako tarte handirik uzten, **aldian behingo** hitzen bat salbu. Xabier Mendiguren Elizegi

Mozkorrek izan ohi duten **aldian behingo** argialdi euforiko horietako bat izango zuela pasatu zitzaidan burutik. Anjel Lertxundi

Eguneroko lanak eta **aldian behingoak** egiten ziren, beraz, Donapaleun erresumarendako. Aingeru Epaltza

Frantziarrek eta normandiarrek beren dorreak eraikitzen segitzea, Henrique zaldunak eman zituen ikasgaiak probestea alde honetan lusitaniarrek, ikasitakoa aplikatuz, beren makina eraikitzen joatea, artilleriak bere **aldian behineko** bonbardaketak egitea, arkulariek beren gezi, azkon eta biroteak jaurtitzea [...]. Jon Alonso

11 *aldian behinka*

Aurrerago, landetan zehar, **aldian behinka**, etsaiaren ehiza hegazkinek, behetik hegan eginez, metrailadorearen tiro sorta bat jaurtiko dute artalde negargarri honen kontra. Josu Zabaleta

---

aldianaldian ik **aldi 2**.

---

aldibaterako ik **aldi 6**.

---

aldiberean ik **aldi 8**.

---

aldibereko 1 *izlag/izond* aldi berean gertatzen dena.

Aldibereko itzulpenak jartzen ditu ikusleen aurreko pantailetan, eta horrela euskaraz aritzen dira Euskal Herritik kanpo ere. Berria - Kultura

-Gerezi beltzek ematen dioten **aldibereko** garraztasun eta gozotasun puntu hori estimatzen diote silesiarrek. Anjel Lertxundi

Jainkoen beldurra ezjakintasunaren irrazionaltasunetik datorrenez, irakurketa informazioaren eta terapia baten **aldibereko** prozesua da eta, terapia guztiak bezala, progresiboa. Xabier Amuriza

Historiako gertakariei so egiten badiegu ere, halako zerbait gertatzen den susmoa daukat: hainbat **aldibereko** xendra daude, eta irudimenarekin baino ezin ditugu denak eskuaretu. Harkaitz Cano

Kapitalismoaren **aldibereko** arrakastak (zapaltzaileak eta bere lagunentzako) eta porrotak (4.900 pertsonentzako) mende gutxi batzuetan Lur planeta lohitu, Biosfera xahutu eta krisialdi ekologiko latza eragin du mundu osoan. Iñaki Heras

Mundu itxuranitz, **aldibereko** eta ia eraman ezineko punturaino zehatz baten soegile bakarti eta oroikuslea zen. Juan Garzia

Afrikako bi bizimodu **aldiberekoen** teinkaren arrazoitik, Afrikako jende modu betiberdin zirkinbakoaren arrazoira pasatzen da Ortega, ondorioarekin, Afrikak ez duela egiten historiarik, Afrikan historia agitu bakarrik egiten dela -oholtza bat baino ez da-, ez afrikarrek egina, atzerritarrek baizik. Joxe Azurmendi

Ezingo dugu, beraz, honetatik soilik abiatuta inoiz determinatu ea anizkunki hori, esperientziaren objektua den heinean, **aldiberekoa** ala hurrenez hurrengoa den. Ibon Uribarri

Kokatze estrategikoa gatazkari aurretikoa edo **aldiberekoa** litzatekeen konponbide negoziaturako prozesuarekin. Berria - Ekonomia

Kausa eta efektua **aldiberekoak** izan daitezkeela. Ibon Uribarri

Gauzak denbora bat eta bakarrean existitzen diren heinean dira **aldiberekoak**. Ibon Uribarri

2 *aldibereko interpretazio* *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

Oro har, **aldibereko interpretazioa** eta esan ostekoa bereizten dira. "Aldiberekoan", interpreteak berehala esaten du mezua xede hizkuntzan, hizlariak etenik gabe hitz egiten jarraitzen duen bitartean. ETC-entziklopedia

Non gerta baitaiteke lekukoren batek edo auzian parte hartzen duen beste norbaitek testu bat irakurtzea eta itzultzaileak testu horixe itzuli behar izatea momentuan bertan, **aldibereko interpretazioaren** teknika erabiliz edo esan ostekoarena erabiliz. ETC-entziklopedia

Aldibereko interpretazioa da zailena? ETC-prentsa

Aldibereko interpretazioa sektore nahiko ezezaguna dela diote arloko profesionalek eurek ere. ETC-prentsa

Subjektuak egin beharreko jardueraren arabera -dela itzulpena (Malakoff, 1992), dela **aldibereko interpretazio** edo dela ondoz ondoko interpretazioa (Isham eta Lane, 1994)- eraldatze-mota hori desberdina da. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *aldibereko itzulpen*

Lehenak (Kaukasiar kreazko borobila) **aldibereko itzulpenak** jartzen ditu ikusleen aurreko pantailetan, eta horrela euskaraz aritzen dira Euskal Herritik kanpo ere. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldiberekoak dira (3); **aldiberekoak izan** (3)

aldiberekotasun *iz* aldiberekoa denaren nolakotasuna.

Honek inplikatzen du definitzen dela berarekin uztarturiko eremu guztien erregimen komuna, eremu horiek guztiek har ditzaketen ondorengotza, **aldiberekotasun** eta errepikapen erak, eta izankidetasun-arlo hauek guztiak elkarren artean uztartzen dituen sistema Hauek dira denboraren hiru modi-ak: iraunkortasuna, segida eta **aldiberekotasuna**. Xabier Arregi

Izpirituaren ahaleginaren edo pentsatzeko duen ahalmenaren, eta Gorputzaren ahaleginaren edo iharduteko duen ahalmenaren artean badugu, izatez, berdintasun eta **aldiberekotasuna**. Piarres Xarriton

Aldiberekotasuna gauza objektibo bat bailitzan errepresentatu nahi badugu, orduan batzuk beste batzuen kanpoan aldi berean hurrenez hurren existitzen diren gauzen determinazioen adimenaren adigai bat beharko dugu. Ibon Uribarri

Denborari dagokionez, planoa orainean dago, Gaudreaulten iritzian, (iragan orainerato bat); **aldiberekotasunaren** eta sinkroniaren mailakoa da beti; eta muntaketak baizik ez du uzten orain etengabe horretatik ihes egiten. Josu Zabaleta

Izan ere, **aldiberekotasunarena** eta segidarena dira denbora-hartueman bakarrak. Ibon Uribarri

Eurak alderatu behar ditu, bata besteari kontrajarri eurak agertzen diren **aldiberekotasunean**. Xabier Arregi

Aldiberekotasunen ardatza, batera existitzen diren gauzen arteko erlazioei dagokiena eta denborak parte hartzea erabat kanpo uzten duena. Isabel Arrigain

Daviden traizioaren eta Daviden kristautzearen **aldiberekotasunak** Atxagaren aurkikuntza garrantzitsu bat ematen du, Jesukristoren bizialdiaren funtsa traizionatzea eta traizionatua izatea izan baitzen. Berria - Kultura

Arkeologiak, beraz, ez du eredutzat hartzen ez **aldiberekotasun** eskema logiko hutsa, ezta gertaeren jarraitasun lineala ere. Xabier Arregi

Agerpenetan bilatu beharko dugu, eta bertan hauteman daiteke edozein aldakuntza edo **aldiberekotasun** agerpenek atzematean beraiekin duten hartuemanari esker. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta aldiberekotasuna** (5); **segida eta aldiberekotasuna** (3)

---

aldiero ik **aldi 9**.

---

aldigaitz *iz* alditxarra.

Aldigaitzen bat, besterik gabe? Josu Zabaleta

---

aldigaizto *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi) iz* alditxarra. ik **aldigaitz**.

Ondo, perfektuki, kaskarkeriarik eta **aldigaiztorik** gabe burutu beharra dago. ETC-literatura, saiakera

Aldigaizto horren arrazoia Itaya ibaitik Napo ibairainoko hegaldian pasatutako ikara izan zen, haizeak, alde batetik, hegazkina gogor inarrosi zuelako [...]. ETC-literatura, saiakera

Beltzak popako gainaldearen mailak igo zituen eta, bere epaia entzutera gora ekarri duten atxilo adoretsu bat bezala, zutik gelditu zen, mutu bezain beldurgabe, don Benito, **aldigaiztoak** eman ondoren bere onera berriz itzulia, aurrean zuela. ETC-literatura, saiakera

Inoiz, gaixotasunaren beraren edo jasaten dituen tratamendu gogorren albo ondorioen eraginez, **aldigaiztoren** batek jota erori, kolpe txar bat hartu eta lurrean etzanda kiratsa dariola aurkitu dezaten beldurrez, tarteka dutxatu eta arropaz aldatu ohi da. ETC-literatura, saiakera

Aitzitik, **aldigaizto** baten efektua izan zuen, azkeneko indarrak ahitu balizkit bezala. ETC-literatura, saiakera

Palestinako giza eskubideen aldeko taldeek jakinarazi dutenez, Deheishen luzaroan eguzkitan eduki zituzten atxilotuak, eta **aldigaiztoa** izandako hiru palestinar artatzera joandako anbulantzia ezin izan zen sartu errefuxiatu gunera, Armadaren buldozerrek bide guztiak moztuak zituelakotz. ETC-prentsa

Artaxonako omenaldiko bere hitzaldian, garai pozgarrietan eta **aldigaiztoetan** lagun izan zuen Jimeno Jurio adiskide zaharrari eskainitako gutuna irakurri zuen. ETC-prentsa

---

aldika *(**131** agerraldi, **53** liburu eta **13** artikulutan)* **1** *adlag* aldizka.

Aldika gira bizian errejent ala ikasle. Herria

Aldika, Lehen Begiek ikusten zutena bat egiten zen Bigarrenek ikusten zutenarekin, eta dena nahasten zitzaidan buruan: [...]. Bernardo Atxaga

Aldika, etxera bidean zihoan beharginen bat edo beste haien aurrean geratzen zen, notiziak jakiteko. Pedro Alberdi

Aldika, etxe berean bizi diren bi arrotz dirudite, biek ala biek. Oskar Arana

Aldika lozorroan, **aldika** erdilo, **aldika** besoak uztartu eta atsedenean. Migel Angel Mintegi

Aldika, baina etengabe, ibiltzen naizen lekuetan entzuten dudan esaldia hau da: [...]. Pako Aristi

Doktoreak **aldika** "bai" edo "noski" erantzuten zion. Juan Kruz Igerabide

Antena luze-malgua apaltzen eta harrotzen da **aldika**, ibilgailuaren mugimenduen arabera. Xabier Montoia

Guztiok izaten ditugu aldarte txarrak, eta aitortzen dut **aldika** bakardadeak eta abaildurak erasaten zidatela. Oskar Arana

Bazterretik hamarren bat metrora, **aldika** murgilduz, **aldika** atereaz, katu gazte bat itotzen ari zen ibaian. haien arrautzak jaten zituen, haien esnea edan, haien ilea moztu, eta **aldika** labana sartzen zion lepoan baten bati. Josu Zabaleta

Denbora bertze erreka bat zela, eta **aldika** eta tarteka ur-jauzi batzuk zituela, eta halatan egin zezakeela eternitaterat jauzi. Joan Mari Irigoien

Anaia Eguzkiaren Kantika, ikertzaile gehienek onartzen duten biografi iturrien lekukotasunaren arabera, **aldika** eratu zuen Frantziskok, bere bizitzako azken bi urteetan: lehen partea (1-9) 1225eko udaberrian; geroago barkamenaren paragrafoa erantsi zuen, eta azken paragrafoa, heriotzarena, 1226ko urriaren 3an hil baino egun batzuk lehenago. Askoren artean

Habe hauen pintura zuria zen berria, **aldika** errepasatua; eta txartelak ateratzeko makina. Iñaki Zabaleta

Datu horien arabera, unibertsitate adinean dauden ikasleen %45 euskaldunak dira orain, nahiz datu hauekin kontu handia izan behar dugun, **aldika** datuak alde batera baitoaz eta errealitatea bestera. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Haiek denak beste mundu batekoak zirela pentsatzen nuen **aldika**, eta **aldika** berriz ni neu nenbilela beste mundu batean galduta. Xabier Mendiguren Elizegi

Hain zuten bereganatua pertsonaia literario bihurtzeko borondatea, non beren lanak inoizkarian -halaxe deitzen zioten **aldika**, oso **aldika**, atera eta EUTGn banatu ohi zuten orri-sorta multikopiatuari- argitaratzean erabiltzen zituzten ezizenak izen bihurtuak baitzituzten. Iñaki Iñurrieta

Egun batzuetan negar egiten dugu, beste batzuetan barre, goibeltzen gara **aldika**, gero poztu. Pako Aristi

2 ***aldika-aldika***

Aldika-aldika telefonoz deitzen dio, eta ez dio inork ere erantzuten. **Aldika-aldika** gizon gazteak sartzen ziren dendan, minutu batzuk barruan egin eta, eskuetan inolako erosketaren paper zorrorik ez zutela, sartu ziren bezala irteten ziren. Oskar Arana

Mutilaren begiak, **aldika-aldika**, berari zuzentzen zaizkio urduri. Oskar Arana

Betteren sendia, alde batetik, eta haren aita handiustearen mutur-sartze larderiatsuak, **aldika-aldika** mehatxu egiten baitzion alabari ez ziola testamentuan ezer emango baldin eta ez bazen dibortziatzen "maritxu nazkagarri hura" utzita. Oskar Arana

Gero, urrutiago, ilargiaren argiak eratzen zuen ordeka zurbila, **aldika-aldika** zeruraino igotzen ziren makal multzoen orban beltzekin. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aldian aldika (5); **aldika aldika** (12); **aldika bere** (3); **aldika iristen** (3); **da aldika** (3); **eta aldika** (21)

---

aldikada *iz* denboraldia.

Aldikada horren azken bi urteotan (1803-1804) onetsitako hogeita hamasei lege bildu ziren, buruen-buruenik, Kode Zibil berrira. Andres Urrutia

Aldikada horietan gauza asko gertatzen ziren Egipton. Pello Salaburu

Erabakia hartuta, Mister Martinen bizimoduaz gogoratuta, uda hasierako egun baten alde egin nuen pisutik inori agur esan barik, eta kalean beste **aldikada** bat emateko prestatu nintzen. Jon Arretxe

Berrogeitaka urte zituenean gaixorik egon zela osaba **aldikada** batez, gripea-edo, eta ohetik kalenturaz altxatu zen batean su eman ziola bagoiari. Unai Elorriaga

Aldikada batzuetan ezin eskuzabalago sentitzen zen eta orduan adiskideak bere etxeko terrazara gonbidatzen zituen; jaten eta edaten ematen zien, eta ondorenean haxixa erretzen zuten. Patxi Zubizarreta

· Estatu bat gobernatzen duenak, profeta baldin bada Jainkoaren atributu horiek eredutzat hartu beharra dauka, honetara horrelako egintzak harengandik neurriz eta zuzenbidearen arabera jalgi daitezen, eta ez grina hutsaren **aldikadaz**. Xabier Kintana

---

aldikako *izlag* aldika gertatzen dena.

LABeko hamar bat kide Baionako **aldikako** laneko bulego batean sartu ziren atzo arratsaldean. Berria - Ekonomia

Aldikako lanak eragiten duen "prekarietatea" salatu zuten. Berria - Ekonomia

Kupidoren **aldikako** deiei entzungor eginik. Joan Mari Irigoien

Zer operazio mota ote dira, beraz, kritikarik ezean, gure poetaren **aldikako** gaitzeste eta laudatze horiek? Patziku Perurena

Halatsu naukazu, hark adierazi zituenetarik gero eta apartatuago eta urrunago, halako moldez, non gezurra erranen bainizuke, baldin aitortuko ez banizu ezen Gero-ren **aldikako** berrirakurraldiek, liburuaren mezuaz eta signifikantzaz denaz bezainbatean, irri maltzur eta maliziosik eragin izan didatela. Joan Mari Irigoien

4 haizeetatiko norabideak batzen dituelako 4ak, eta 3aren hiru **aldikako** aldarrikapen irmo sendoa, bestetik. Pello Zabala

---

aldikal *adlag* aldiko, aldi bakoitzean.

Baina amak, hain minbera bera, hordi alferhaundi bat zela errepikatzeaz gain, hilarietako prediku-otoitza zela erran zigun, ofizianteak **aldikal** errepikatu ohi zuena. Jose Angel Irigaray

Bena funtsez, **aldikal** berri da pastorala, **aldikal** istoria berri bat kontatzen düalako. Herria

Eta hortik dator, hain zuzen, gorroto dugun gauzak pairaturiko gaitzetik sortzen zaigun Poztasuna errepikatzen baita, gauza horretaz oroitzen garen **aldikal**. Piarres Xarriton

---

aldikari *iz* aldizkaria.

Nahiago zuen etxean gelditu, semeak alegia deus ez ekartzen zizkion errege eta printzesen mundua azaltzen zuten **aldikariak** hostokatuz. Itxaro Borda

'Errefuxiatuak' **aldikariak** Euskal Herriari buruzko atal berezia dakar. Berria - Euskal Herria

---

aldiko ik **aldi 20**.

---

aldioro *(29 agerraldi; orobat **aldiero** 15 agerraldi) adlag* aldi oro, aldi guztietan.

Bakea ematen duen Jainkoak eman diezazuela bakea **aldioro** eta era guztietan. Elizen arteko biblia

Sei aldiz jarri zion etxea; eta, **aldioro**, bahituran utzi zituen andreak altzariak. Irene Aldasoro

Esan den bezala, osasuntsu eta sendo garenok **aldioro** garizumako janariak hartzen ditugu. Askoren artean

Ez dakite argi zer egin moila, kanal, garabi, tximinia eta bestelako aurriekin, baina borroka partikularrari eusteko arrazoi bat gehiago ematen diete **aldioro**. Urtzi Urrutikoeetxea

Zure aginduak etsaiak baino zuhurrago egiten nau, neurekin baitut **aldioro**. Elizen arteko biblia

Ernegazio halakoan ospa egiten zuen **aldioro**, sekula itzuliko ez zelako mehatxua egiten zion emazteari. Mirentxu Larrañaga

Hortik dator giza Izpirituak, Naturaren ordena arruntetik abiatuz gauzak hautematen dituen **aldioro**, ez duela ez bere buruaren ez bere Gorputzaren ez kanpoko gorputzen ezagutza egokirik izaten baina bakarrik ezagutza nahasi eta murriztailea. Piarres Xarriton

Topatzen ninduten **aldioro**, naturaltasun handiz, nire zeregin zentzugabeari buruz mintzatzen ziren, ez asmo adarjolerik gabe. Harkaitz Cano

Atsoak On Camillo aurkitzen zuen **aldioro** mehatxu egiten zion makilaz eta oihuka esaten apaiz boltxebikeentzat ere badagoela Jaungoiko bat. egunaren joanak aitzakiak eman **aldiero** dutxatzen nintzen hona ekarri ninduten arte. Koldo Biguri

Bazirudien **aldiero** iritziz aldatu eta berriro hegatzen zirela, zeren, bere ustez, bele zaharra, bele aita, Joseph zaharra deitzen zion, izakera gogaikarri eta bihurrikoa baitzen. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
zuen aldioro (3)

---

aldioroko ik **aldiro 3**.

---

aldiri **1** *iz* hiri baten inguruko aldea, auzoa edo herrixka.

Landetxe bat diat **aldirian**. Xabier Olarra

Bide hura hainbat aldiz egina nuen lehenago ere, aita bizi zelarik; zain izaten nuen bidaiaren amaieran, hiri industrial hartako **aldirian**, bera hain eskas bizi izan zen, berak hain estimu gutxi zion eta, nire eskua bere eskuan hartuta, berak nirekin inoiz paseatu ez zuen leku hartan. Eskarne Mujika

Konturatzerako, hiria eskuratua zuten: tren geltokia, autobusak, taxiak, udaltzaingoa, leku estrategikoak; baita kuartel militar txikia ere, **aldirian** zegoena, mendi aldera. Karlos Linazasoro

Gurasoeneko barride baten alabarenera jo nuen hondarrean, hemezortzi-hogei urtetan Charlyri esker **aldirian** ezagutu genituen auzoetariko batera. Aingeru Epaltza

Kuartelera eraman gintuzten, Aostako **aldirian** baitzen. Juan Garzia

Nik, beraz, laguntzea erabaki nuen, baina ez genion elkarri hitzik esan, eta bere bebarrura iritsi ginenean, ez nintzen geratu; aurrera jarraitu nuen, ibili eta ibili denbora luzean, *cottage*-z osaturiko **aldirira** atera nintzen arte, zeinen hesi atzetatik zakurrek zitalki egiten zidaten zaunka. Ramon Saizarbitoria

Izan duk denbora, han, tropikoan, pentsatzeko, eta gero Londresko **aldiriko** etxean. Xabier Olarra

2 (pluralean)

Kopeta kristalean nuela egin nuen hainbat denbora, atzean geratzen ari ziren etxe ilarak eta **aldiriak** ikusten. Anjel Lertxundi

Azkenik, Atenasko **aldiriak**, baina gure martxa ere gero eta motelagoa; semaforoak, betiko butxadurak, eta gure kamioia, bere hodi luze haiek dindilizka, beste ibilgailu guztiak baino gangarrago. Joxe Austin Arrieta

Aldirietan horrenbeste urte egin eta gero, iruditzen zait hiria eta biok ondo konpontzen hasi garela, eta dagoeneko nahitasuna hartu diot neure auzoari. Oskar Arana

Hirira eramango hau, eta goizean joatea izango duk, Londresko **aldirietan** duan etxera, tropikora edo derizkioan tokira. Xabier Olarra

Aldirietan txabola errukarriek beren aurpegi itsusiak erakutsiko dizkizute. Gotzon Garate

Bazen Ann Arbor-eko **aldirietan** intseminazio artifizialeko klinika bat, eta hiru lagun haiek erabaki zuten beren zerbitzuak eskainiko zizkiotela esperma-bankuari, emaile gisa. Oskar Arana

Hiri txiki bateko **aldirietan**, lehengo hiri handitik hurbil. Fernando Rey

Lehenik, **aldirietako** herrixka handi batetik igaro behar zuen, eta gero errepidetik, landatik eta basoaren mugatik. Jose Morales

Trenaren alboetara, **aldirietako** hiriondoetan urratzen zen hiria; ikustate horrek, eta jardin eta landetxeenak gero, atzeratu egin zuten irakurketaren hasiera. Juan Garzia

Aldirietako gune hartan, Ameriketako haritzak, udazkenean gorritu egiten diren horietakoak, aldatu zituzten. Joxan Elosegi

Aldirietako kolegio handi bateko irakaslea zen Honoré. Joxan Elosegi

Aldirietako autoak arineketan doaz bide asfaltatu honetan. Javi Cillero

Zuk ikaragarrizko tren geltokia jar zenezake, zerbitzu eta luxu ikaragarrienekin, baina hor pasatzen den trena **aldirietakoa** baldin bada, ez da nazioartekoa izango. Berria - Harian

Markesaren zalgurdiari segitu diote begiradaz **aldirietatik** hirirainoko galtzadan aurrera. Anjel Lertxundi

Hogeita hamaika urte igaroak nituen egunero **aldirietatik** Mid-Atlantic Accident and Life aseguru-etxearen bulegoetara joan-etorrian. Oskar Arana

Bridgeport-eko **aldirietatik** igarotzen ari ginela hartu zuen loak Lucy, I-95 errepidean. Oskar Arana

Kartolarik gabeko orga handi banaka batzuek auzo oso bateko fruta saltzaileak hornitzeko adina merkantzia garraiatzen zuten, bankudun gurdi karrankariak **aldirietarantz** abiatzen ziren. Karlos Zabala

3 irud/hed

Amorru sor bat hasi zitzaion berriz ere gogoaren **aldirietan** biltzen, eta haragizko desiraren su motelduak gar haserreak harrotu zizkion zainetan. Irene Aldasoro

Bizitzaren **aldirietan** ezagutu nuen aspaldiko lagun zahar batek dio garaiz esaten ez den egiak bere tokia galtzen duela. Anjel Lertxundi

Ba, "joanda" daudenak, edo galduta, edo nola ez dakigula daudenak omen dauden ezlekuetara, edo ezleku horien **aldirietara** bederen; izenik ere ez duten ibarretara eta toponimiak bataiatu ez dituen hondartzetaraino. Iñaki Segurola

4 ***aldiriko tren*** *(orobat* ***aldirietako tren*** *g.er.)* aldirietako zerbitzua egiten duen trena.

Aldiriko tren bat geltokira ailegatzen ari zen. Fernando Rey

CAFek **aldiriko** 40 **tren** egingo ditu Renferentzat, 200 milioi euroan. Berria - Ekonomia

Argitu ez zuten arrazoiren batengatik, **aldiriko trena** norabide bakarreko trenbidean sartu zen espresa zetorrenean. Berria - Mundua

Geltokian barna zamatren batzuk pasatu ziren, gero **aldiriko tren** bat, zerbitzuko bagoiko zirrikituetatik argilerro bat ateratzen zen. Fernando Rey

Gizon bat hil da Urnietan **aldiriko tren** batek harrapatuta. Berria - Euskal Herria

Beasaingo CAFek, Siemensekin partzuergoan, irabazi egin du Renfe Espainiako tren konpainiak **aldiriko trenak** eraikitzeko inoiz egindako lehiaketa handieneko bi loteetako bat. Berria - Ekonomia

Graffitiak, **aldiriko trenen** geltokiak, gau osoa irekita egoten diren okindegiak, badakik". Iban Zaldua

Beste aldetik, ibai aldean, hesi ertzaren gainetik ikusi dut pasatzen **aldirietako tren** berdearen sabaia. Urtzi Urrutikoetxea

Isil-misilka txistu eginez tren jasorantz jo eta **aldirietako trena** hartu zuen. Lopez de Arana

· 2003an hainbat kontratu lortu zituen CAFek: Renferentzat **aldiriko** 40 Civia unitate; Bartzelonako Metrorako bosna kotxeko 39 tren; Sevillako metrorako 17 unitate arin. Berria - Ekonomia

Trenetako bat espresa zen, eta bestea, berriz, **aldirikoa**. Berria - Mundua

Renferen bidai txartelak %2 garestituko dira, **aldirikoetan** zein linea handiagoetan. Berria - Ekonomia

Aldiriko bidaietako tarifak %5 garestitu ditu Renfek. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldirik ez** (4); **aldiriko tren** (4); **bizitzako aldirik** (4); **eta aldirietako** (4); **hiriko aldirietan** (4)

---

aldiritar *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *izlag* aldirietako biztanlea, aldiriei dagokiena.

Fina bezain gordina, jasoa bezain **aldiritarra**, ezkertiarra, mundutarra, alaia, modernoa... ETC-prentsa

Aipatu beharra dago ekimen honen eta beste hirigintza-garapen **aldiritarren** poderioz, 1950-60 bitartean AEBetan 20 miloi pertsonak hirietatik aldirietara ihes egin zuela. ETC-entziklopedia

---

aldiro **1** *adlag* aldi oro; beti.

Aldiro Memok santu baten moduan jokatzen zuen, bere bizitza eta mundua arbuiatzen dituen santu baten moduan. Fernando Rey

Zeremonia bera da **aldiro** presondegi berri batean sartzean. Filipe Bidart

Ulls del Mon Kataluniako Liburu hauetako batean Adolf Hitlerren karikatura ageri zen, hogei bat aldiz errepikatua, baina **aldiro** bere aurpegia munduko arraza ezberdin bateko bisaiara egokitua: judua, txinatarra, kenyarra, hungariarra, frantziarra. Harkaitz Cano

Ipuin Orokorra, alegoria den partez, konkretatu egiten dela **aldiro**, premiaz premia, arlorik arlo. Bernardo Atxaga

Maite zuen Gregory eta honen istorioak atsegin zitzaizkion, inoiz ez baitziren berdinak, **aldiro** deskribapen berriren bat sartzen baitzuen, batzuetan tristeki, besteetan alaiki. Iñaki Zabaleta

Oso guapoa zela uste zuen, etxean denek esaten zioten-eta oso guapoa zela, eta hark uste zuen benetan guapoa zela, eta **aldiro** ispiluan bere buruari begira egoten zen. Pello Lizarralde

Joaten eta etortzen sentitzen nuen, **aldiro** gutxiago; harik eta hain mehetu zen, ezen hatzen artetik irazi baitzitzaidan betiko. Juan Garzia

Franko berotzen zen zirri trakets haiekin, **aldiro** nolako psikologia nuen jakiteko helburua zuten ukitu haiekin. Fernando Rey

Normalizatuko dira gauzak inoiz, etorriko dira urak biltegietara egunen batean **aldiro** ubide bazterretik mehatxuka ibili gabe? Pello Salaburu

Eta hona zer kontatu zidan handik, haizetxo mehe batek, **aldiro** putz eginez, itsaso bare bat bezala uhinetan kizkurtzen zituen uzta dagoeneko helduek inguratzen zuten lehengo bide nagusi zurira itzultzen ari ginen bitartean. Josu Zabaleta

Hor zebilen beti amona gaixoa, bilobak nola edo hala bekatutik libratu nahiz: bazterrak miatzen zituen -ea horietako lotsagaberen bat aurkitzen zuen-, infernuko kondenazioaren minak eta zoritxarrak **aldiro** aipatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Maite zuen Gregory eta honen istorioak atsegin zitzaizkion, inoiz ez baitziren berdinak, **aldiro** deskribapen berriren bat sartzen baitzuen, batzuetan tristeki, besteetan alaiki.

Iñaki Zabaleta

2 (aditz baten ezkerrean edo eskuinean)

GKEak **aldiro** bidaltzen ditu boluntarioak herrialde pobreetara, begiko arazoak tratatzeko. Berria - Gaiak

Bada, **aldiro** gogorarazten zion andre hark marabutari egungo Animalien Aldeko Elkarteak indar handia duela. Joxan Elosegi

Egunero edo **aldiro** egin behar izaten diren bidaiak merkeago egiterik badagoela entzuteak, jakin-mina adina susmo eragin ditzake zerbitzua balia dezaketenen artean. Berria - Euskal Herria

Aldiro gelditu eta lurreko hostoren bat saiatzen da harrapatzen. Koldo Izagirre

Aldiro egiten ditugun azterketek erakusten dute itsasadarreko uraren oxigeno maila %60 izatera heldu dela. Berria - Euskal Herria

Aldiro errepikatu behar zer gertatu zitzaion eta jendea ezinago kurios. Daniel Landart

Alzheimer gaitzak jotako hemengo batek Miel deitzen dit agurtzen dudan **aldiro**, eta keinu egiten du esku ahurraz airean, euliren bat harrapatu nahiko balu bezala. Anjel Lertxundi

Aspaldi entzuten ditugu hitzok, gertaera latz bat izaten den **aldiro**, baina gauzek berdin segitzen dute. Berria - Harian

Ia urte bat igaro da aitzakia hori eratu zutenetik eta etxeak, meskitak, jatetxeak suntsitzen eta haur eta emakumeak hiltzen dituzten **aldiro** hau diote: 'Al Zarkauiren aurkako operazio arrakastatsua egin dugu'. Berria - Mundua

Ate bat irekitzen duan **aldiro** odolkidetasunaren legearen ondorio ustelen bat kausitzen duk. Aingeru Epaltza

"Volkswagenen produkzioa jaisten den **aldiro**, lan gatazkak etengabeak izanen dira", esan zuen. Berria - Ekonomia

Zerbait ikusten zuela esaten zuen **aldiro**, haiek: "Ikusi? Xabier Olarra

Horretarako modaren kultura sortu du, **aldiro** zerbait berriarekin datorrena, eta **aldiro** horra igotzen ez bagara atzean geratzen ari garela sentiarazten diguna. Pako Aristi

Eta arratsalde bukaeran otordua egitera azaltzen nintzen **aldiro**, han egoten zen orduan ere mahairen batean, beste parrokianoekin solasean. Matías Múgica

Bere ibiliak kontatzeko eskatu genion, baina "Gau honetan bertan gertatuko duk gorrien eraso nagusia" esaten zigun **aldiro**, pozik zegoelako plantak eginez, armada errepublikarra bera salbatzeko antolatu izan balitz bezala. Koldo Izagirre

Prebentzio modura atxilotzen zuten Leone agintari politikoren bat edo erregea Turinera etortzen zen **aldiro**. Fernando Rey

Txunditu baten begiak geratzen zitzaizkidan kopetaren erdian horrelako zerbait gertatzen zen **aldiro**. Joxan Elosegi

Lehen solairu batean bizi gara, eta emazteari eta bioi ileak lazten zitzaizkigun haren Vespa atari ondoan puzkerka aditzen genuen **aldiro**. Aingeru Epaltza

Berba isilez mintzo zen, tartean algararen bat egiten bazuen ere, Mentxuren izena errepikatzen zuen **aldiro**. Josu Landa

Gure amak, handik aurrera, saiheskiak jaten zituen **aldiro** esaten zuen: [...]. Fernando Rey

Hara joaten ginen **aldiro**, aitak irudiaren ezohikotasuna goratu behar izaten zigun, baina bertan zeuden guztiek entzuteko moduan: Eboluzioak berekin dakarren konplexutasun-gehikuntza, berriz, genomei **aldiro** ADN puskak gehitzearen ondorio zen. Anjel Lertxundi

Sineste zahar baten eraginez, latina zela medio bereganatu ditu euskaldunak "dominstiku egin, dominstikuka ari" bezalako esanerak, behiala, inork urtzintz egin **aldiro**, "Dominus tecum" esalegea, hutsik egin gabe oroiberritzen zelako. Patziku Perurena

Emaztearen aiene isilak entzuten ditu **aldiro**. Jokin Muñoz

Horrela, film ezberdina egiten dut **aldiro**. Berria - Kultura

2 ***aldian aldiro***

-Aldian aldiro ematen didate haren berri, baina... Jon Muñoz

Baina amore eman nion, bestela **aldian aldiro** zuzentzen baitzidan nirea. Joxe Austin Arrieta

3 ***aldiro-aldiro***

Aldiro-aldiro Foro Iraunkorrak gomendioak egiten dizkio Nazio Batuen Gizarte eta Ekonomia Kontseiluari. Berria - Gaiak

Aldiro-aldiro haiek estaltzen dituen egunkaria jasotzen du: hantxe dago dena. Josu Zabaleta

Aldiro-aldiro oihu egiten nuen: Ea! Josu Zabaleta

Hortik dator agian egiaz irudiaren aldi batean bizi garelako sentipena; hainbesteraino non ez baitira falta, inspirazio gehiagorekin edo gutxiagorekin, pozez edo deitorez, **aldiro-aldiro** idatzizko adierazpenaren heriotza iragartzen duten profetak. Josu Zabaleta

Okerrena Alfa Romeo hura zen, behin eta berriro zetorrena eta **aldiro-aldiro** lasterketarako abioan zirudiena, haren iskanbila etxe artetik ziztuka, hiru minutu eskas ere ez zuen irauten lasaitasunak. Joxe Austin Arrieta

Era berean, "gomendagarria" da, **aldiro-aldiro** gorputzeko glukosa eta lipido maila kontrolatzea. Berria - Gaiak

Aldiro-aldiro zuhaitzen kraska entzuten zen, beren zurezko besoak azalaren azpian zartatu izan balitzaizkie bezala; eta, zenbaitetan, adar lodiren bat askatu eta erori egiten zen, izozte garaiezinak barneko izerdia harri bihurturik eta hariak etenik. Josu Zabaleta

Rosako gaztetxoek ezin gehiagoan jarraitzen zuten kantuan, oinak mahai gainean jarrita, elkarri begietara barrez begiratuz, eta **aldiro-aldiro** ardo zurrutada bat edanez. Josu Zabaleta

Ezkerretara, ilargiaren parean, zabaltzen ziren, hutsik, bolbora gordelekuko biltegiak, behinola **aldiro-aldiro** lehertu eta inguruko herri guztietako beirak hausten zituztenak. Josu Zabaleta

Nire ekoizpena neurtzen zuen Saito jaunak, gutunak **aldiro-aldiro** urratuz, errefrau moduko zerbait zatekeen oihu ttiki hura beste iruzkinik gabe. Joxan Elosegi

Tximistaren batek urratzen zuen zerua **aldiro-aldiro**, eta bitarte labur haiek izaten zituen Andreasek belaontziaren norabidea egokitzeko gida. Anjel Lertxundi

Zenbait jardun egiten genituen **aldiro-aldiro**: gimnastika, irakurri, politikari buruzko hizketaldiak... baina inork agindu gabe. Rafa Egiguren

· Profesional espezializatuek tartekako garbiketa sakona edo **aldiro-aldiroko** garbiketa egiten dute ezinduta dauden pertsona nagusien etxeetan. Berria - Euskal Herria

4 ***aldiroko*** *izlag* aldiro egiten dena.

Egun osoa pasatu dute leherketaren gaineko **aldiroko** informazioa ematen. Jokin Muñoz

"Azpiegiturak behar bezala ez mantentzea" eta "atmosferara kloroa isurtzeko aukerak" antzeman omen ditu Jaurlaritzak Electroquimica de Hernanin, Industria Sailak azken hilabeteotan **"aldiroko** istripuak" ikustearen ondorioz enpresa horri egin dion jarraipenaren bitartez. Berria - Euskal Herria

Eta ezin dut atsedenik hartu inoiz, arrazoiaren **aldiroko** itzalaldi hauek eteten dituen existentziak sumatzen, sentitzen ditudalarik horma batean atzean. Josu Zabaleta

Jainkoak gidatzen du historia hemen ere, jakina, baina haren presentzia ez da aurrekoetan bezain begi-bistakoa: hemen ez da orakulurik, ez ikuskaririk, ez aldarerik edo **aldiroko** agerraldirik. Jose Antonio Mujika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldian aldiro (3); **aldiro aldiro** (41); **aldiro bere** (3); **aldiro egiten** (8); **aldiro egiten dituzten** (3); **aldiro eta** (4); **aldiro gure** (3); **aldiro neure** (3); **aldiro nire** (3); **aldiro sortzen** (3); **aldiro zerbait** (3); **da aldiro** (4); **den aldiro** (9); **diren aldiro** (5); **ditu aldiro** (3); **dituen aldiro** (4); **dudan aldiro** (7); **duen aldiro** (11); **dugun aldiro** (5); **duten aldiro** (4); **esaten zuen aldiro** (3); **eta aldiro** (24); **eta aldiro aldiro** (3); **genuen aldiro** (4); **ginen aldiro** (4); **naizen aldiro** (5); **nintzen aldiro** (10); **nuen aldiro** (8); **pasatzen zen aldiro** (3); **zen aldiro** (17); **zion aldiro** (3); **zituen aldiro** (4); **zuen aldiro** (24); **zuten aldiro** (5)

---

alditan **1** *adlag* aldian behin.

Gorputza inoiz arinago edo geldoago mugitzen delarik eta inoiz geldi egon, mugimendua ez ezik egona ere **alditan** neurtzen dugu eta hau esaten: "Geldi egon adina mugitu da" edota "mugitu baino bi edo hiru aldiz gehiago egon da geldi" eta esan ohi denez, eta berdin gertatzen, gure neurgaia ulertu edo taxutu dezan beste edozerekin, gutxi gorabehera. Imanol Unzurrunzaga

Alditan, batzuetan luzaroan, mutuen moduan ibiltzen ginen. Joseba Sarrionandia

Alditan, balentria handia eta psikoanalisiak eman ezin dezakeen oreka behar izaten dira Vàttene! (hoa popatik!) esateko gogoa bridatzeko. Anjel Lertxundi

Alditan balentria handia eta psikoanalisiak eman ezin dezakeen oreka behar izaten dira Vàttene! (hoa popatik!) esateko gogoa bridatzeko. Berria - Kultura

2 ***alditan ... alditan***

Gero eta hurbilago dago, hiruzpalau legoatara, airearen araberako hiriaren perfila, **alditan** zuria, **alditan** urdindua. Anjel Lertxundi

---

alditsu *izond* aldakorra, aldiak dituena.

Bertze edozein ume bezain heldugabe eta umogabe nintzela, hauskorra eta **alditsua**. Joan Mari Irigoien

Bizkaitarra, berez halakoa zelako, **alditsua** eta aldartetsua, eta gipuzkoarra, hala jokatzea erabaki zuelako, xalotasunaren eta tolesgabetasunaren beztimenda arimaren estalgarritzat harturik. Joan Mari Irigoien

Maritxu, **alditsu**, txima-luze! Koro Navarro

---

alditsuko *izond/iz* gutxi gorabehera aldi edo garai berekoa.

Bere **alditsukoak** dira Jose Manterola (1849) eta Arturo Campion nafarra (1854). Berria - Kultura

---

alditxar *iz* gorputzeko ondoeza.

-Badakit -gaitza, **alditxarra**, zorabioa. Fernando Morillo

Van Daan andrearentzat gehiegi izan zen hori: papera baino zuriago, ia ondoezak emanda geratu zen bere sofan, eta tentsio horrek gehiago iraun izan balu **alditxarrak** emango ziokeen bertan. Josu Zabaleta

-On Camillo, **alditxarrak** eman al dio? Koldo Biguri

Alditxarra laster iragan zaio, baina, beste ezertarako tarterik utzi gabe, lehenengo hotzikarak astindu du. Pello Lizarralde

Pagatzen ez zuten bezero batzuen aitzakiaz liskarra izan zuen gure amarekin, eta, azkenean, ipurdiko min handiak jota gure amak **alditxarra** izan zuen. Pello Lizarralde

Ez dugu **alditxarra** pasarazi diogun hark azkazalei hozka egiteak duen traszendentzia ulertzen, ez dugu disgustua eman diogun neskatilaren begirada lurrerantz eroriaren ilusio suntsitua bere benetako neurrian atzematen. Harkaitz Cano

---

alditxartu, alditxar(tu), alditxartzen **1** da *ad* alditxarrak joa gertatu, osasuna-edo bat-batean galdu.

Gero, bat-batean, poz ahaltsu batek gora egin zuen nire barrenean, **alditxartu** nintzen ia: orduan, gizon haiek anaiak bezala maite nituela sentitu nuen, guztiei musu eman nahiko nien. Monika Etxebarria

Eta supituki, hori erraitearekin **alditxartzen** da eta erortzen. Michel Oronoz

Aldi berean Jainko eta Zakur, pozik eta xomorro, begi-zulotik Lutezia ikusten nuen zurbil eta **alditxartzeko** zorian. Matías Múgica

Lehenik egokitu zitzaion gutuna irakurtzen hasia zela ikusi nuelarik, doi-doia izan nuen besaulki batera heltzeko parada, eta **alditxartu** nintzen kordea galtzeraino. Jon Muñoz

Medikuek kendua izango zioten, inondik ere, zaurituaren gelan sartzen zirenak zirraraz **alditxartu** ez zitezen, zinez gauza hitsa baitzen, izan ere, esku hura. Josu Zabaleta

Enrieta hain zen zoriontsu bere semea sendo eta salbu ikustean, non emozioarengatik abantzu **alditxartu** baitzen. Elena Touyarou

Alditxartu behar nuela iruditu zitzaidan. Josu Zabaleta

Alditxarturik zegoen, egonezinik, hutsune larria sumatzen zuen bihotzean. Jose Morales

Erran didate **alditxarturik** egon zarela, eta zure osasunak kezkaturik nauka. Jon Muñoz

Erran didate **alditxarturik** egon zarela, eta zure osasunak kezkaturik nauka. Jon Muñoz

Amorruak **alditxartuta** zeukan Karlos. Koro Navarro

Alditxartuta utzi ninduen eszenak, eta kalera irten nintzen gela ezagutzeko betarik hartu gabe. Anjel Lertxundi

2 du *ad*

Zalantzak, bestalde, nahikoa **alditxartu** ninduen, egia esan behar baldin bada. Karlos Linazasoro

3 (era burutua izenondo gisa)

Zumarragako aldean jotzera prestatzen ginen soinujoleoi hasi zituan apaiz **alditxartuak** infernuko hauspoa jotzen genuela esaten. Pako Aristi

Loro **alditxartu** bat zeukan pausaturik esku zauri gabean. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alditxartu nintzen** (3); **alditxartzeko zorian** (3); **alditxartzeko zorian** (3)

---

alditxartuxe *adlag adkor* apur bat alditxarturik.

Danceny desenkusatu zen, **alditxartuxe** zela erranez; eta nik, ez bainuen estakururik, kantatu behar izan nuen. Jon Muñoz

Uzten zaitut eta banoa neure alaba ikustera, **alditxartuxe** da eta. Jon Muñoz

---

alditxartze *iz* alditxarrak joa gertatzea, osasuna-edo bat-batean galtzea.

Karrikako itzulia eginik etxerat zoalarik **alditxartze** bat izan du eta bidean erori. Herria

Urrutitik begiztatu nuen nire lorategiaren masa iluna, eta ez dakit nondik sortuta etorri zitzaidan halako **alditxartze** bat han sartu behar nuelako pentsatze hutsarekin. Josu Zabaleta

-Tira, gogora ezazu, gazte -esango zuen Harryk, esku gainarekin bekokia estutuz diva baten **alditxartzearen** gezurrezko imintzioa eginez-, nigana lanera etortzen zarenean, ikusiko duzu liburuek ez dutela odol-jariorik izaten. Oskar Arana

Mahaian, hautatzen duzu zeure lekua hain zuzen ere nirearen ondoan: **alditxartze** arin batek bertzeak baino lehen irtenarazten nau; eta nire bakardadea errespetatu ordez, etorrarazten duzu mundu guztia bakardade hori durduzatzera. Jon Muñoz

Nire kaperan izan da, neure **alditxartze** oinazetsuaz geroztik lehen aldiz jaitsi bainaiz hara. Jon Muñoz

Amodioak zure oinetara narama; eta asturu onak zure ondoan jartzen nauelarik, nahiago duzu **alditxartze** irudi bat egin eta zure adiskideak asaldatu, nire ondoan gelditzera makurtu baino! Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alditxartze bat** (3

---

alditxo 1 *iz* denbora bitarte laburra.

Alditxo baten ostean, santuak, gertatzen ari zenaz jabetuta, dei egin zion eta aske gelditu zen; gero, harengana itzuli eta jasan zuena kontatu zion. Askoren artean

Alditxo batez negarrez eta erreguka aritu ondoren, bat-batean, loturak kendurik, guztiz sendatuta aurkitu zen. Askoren artean

Alditxo batez lasai egon nintzen, baina berehalaxe ontziaren mugimendu arinek kezkatu ninduten. Josu Zabaleta

Eta handik **alditxo** batera, munduko bizieratik atera nintzen. Pello Zabala

Hara iritsi eta **alditxo** batera, osasun-arazoak areagotu egin zitzaizkion: sabela hazi zitzaion, zangoak eta oinak handitu, eta urdailak, gero eta hondatuago, ez zion ia jatekorik onartzen. Askoren artean

Gauza galkor guztiak baino nahiago izan zuen pobretasuna, betiko ondarearen berme dena, eta ezereztzat jotzen zituen aberastasun engainagarriak, **alditxo** baterako hartutako jabetza baino ez direnak. Askoren artean

Bi egunetako **alditxoa**, ez gehiago, eta berriro Caffarelli kaleko sotoan izango nintzen, erdi bukatuta utzi nuen artikulua osatu eta zuzentzen. Anjel Lertxundi

Mutila **alditxo** labur bat besterik ez zen han gelditu. Gotzon Garate

Hauxe da Vishnuren bizitzako **alditxorik** goxoena. Elur **alditxoak** neguan badutela euren joeratxo berezi eta propialik. Gotzon Garate

Areatza inguruan paseo **alditxoa** egin ostean terrazan jesarri nintzen. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alditxo bat (7); **alditxo batean** (5); **alditxo batera** (5); **alditxo baterako** (6); **alditxo batez** (20); **eta alditxo** (3); **handik alditxo** (3); **handik alditxo batera** (3)

---

aldiune *iz* denbora bitartea, eskuarki laburra. ik **momentu**.

-Dudarik gabe -dudatan egon zen **aldiune** batez-. Migel Angel Mintegi

Jaegwon Kim-en teorian, gertaldi batek hiru osagai ditu, alegia, banako bat, propietate bat eta **aldiune** bat. Askoren artean

Puntuak eta **aldiuneak** mugak besterik ez dira, h[au] d[a], espazioaren eta denboraren zedarriztapenaren kokaguneak. bakarrik merezimendu handiak dituen norbaitez eta gertatzen ginen **aldiuneaz** orroituz, Errege Jaunak delako auzi honetara bidaliak zituen prelatuetarik bat, zegokion bezala hemengo gortearen aurrean, ohoratzea. Ibon Uribarri

Deribatua hartzeak **aldiuneko** aldaketa neurtzea zekarren. Jon Muñoz

-Dudarik gabe -dudatan egon zen **aldiune** batez-. Migel Angel Mintegi

---

aldiuneko *izond* magnitude baten balioez mintzatuz, une jakin batean duena.

Deribatua, esate baterako, zer zen ulertu uste zuen Ruche jaunak, nahiz nozio horrek ez zion oroitzapen onik utzi: funtzio baten **aldiuneko** aldaketa neurtzea. Jon Muñoz

---

aldiz[1] 1 *lok goi* bi gertakariren arteko desberdintasuna edo kontrakotasuna adierazteko erabiltzen den lokailua; bigarren perpausaren barnean ezartzen da, gehienetan mintzagaiaren atzean. ik **berriz 2**.

Aldiz, badakit, eta horrek gehiago munta du enetzat, zoin den zure bihotzeko mina. Janbattitt Dirassar

Isaakek maiteago zuen Esau, gogoko baitzuen ehiza-jana; Rebekak, **aldiz**, Jakob zuen maiteago. Elizen arteko biblia

Sokratesek ez du deus argitzen zuzenean; bai, **aldiz**, galderen bidez. Askoren artean

Hebertar batzuk Jordanez bestaldera igaro ziren, Gad eta Galaad lurraldeetara. Saulek, **aldiz**, Gilgalen jarraitu zuen, berarekin zen jende guztia beldur-ikaraz zegoelarik. Elizen arteko biblia

Galaadeko Bartzilairen semeak, **aldiz**, har itzazu ongi. Elizen arteko biblia

Frigiarrek, **aldiz**, leku ordeketan eta zuhaitzik gabeko parajeetan bizi direnez, ez dute egurrik izaten. Santiago Iruretagoiena

Don Frantziskok, **aldiz**, ez zuen batere laket, eta klar aitortzen zuen ezen aitorlekua zela bere penitentzia. Joan Mari Irigoien

Horietarik bat ezkondu zen Ondarrola Axinera, beste bat Azkarate Ferranddoinera, Ana Josefa **aldiz** etxera Eiheralarreko Arrosagaray-ekin eta, alargundu ondoan, Gortari-rekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gizona punpa eta jauzika ari zen, izuaren eraginez hatsa elkor hartuz; sugea **aldiz**, ezpalak ozen eta argi, uhinka zebilen, ezker eta eskuin. Itxaro Borda

Eta nik, **aldiz**, hegaldatu egin nahi izaiten nian, hori banekian, nahiz eta artean ez nekian norat egin. Joan Mari Irigoien

Ezagutu ditudan gizonekin, **aldiz**, oro zen hitz egitea, berriketa, azalpenak, eztabaidak,... beti jardunean. Oskar Arana

Osasuntsuek eraman zitzatela pazientziaz ahizpa gaixoak zaintzeko nekeak, eta gaixoek, **aldiz**, beren gaitz eta premiak. Askoren artean

Bihurria haur bat izan liteke; hezigaitza eta managaitza kontzeptu negatiboak dira; mutiriak lotsagabezia adierazten du; errebeldea, **aldiz**, sistema baten kontrako jarrera aktiboa duena da, haren aurrean errebelatzen dena. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxe bakoitzaren aitzinean dantza zenbait eskaintzen dute eta etxekoek **aldiz** emaiten ordainez lukainka, zingarra, arroltzeak edo beste edozein gauza, berdin sosa ere. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Europako mundu-ekonomiak, **aldiz**, berezitasun bat du: indarrez bateratua izateko ahalegin orori aurre egin dio, dela Karlos V.aren ekimenei, dela Napoleonen gerrei, dela Europa kontinentala azpiratzeko Alemania naziak egindako ahaleginei. Koro Navarro

Hizkuntza diakronikoak, **aldiz**, kontzientzia kolektibo batek atzematen ez dituen hurrenez hurreneko terminoak izango ditu helburu. Isabel Arrigain

Liburu txarrak ohitura txarrak sortzen ditu, baina ohitura txarrak, **aldiz**, liburu onak. Patziku Perurena

Jaki batzuk lar erreta atera zituzten, eta beste batzuk, **aldiz**, erdi egosirik, ia gordinik. Jose Morales

Lisboako hartan, **aldiz**, zuzen galdetu zidan. Edorta Jimenez

Hori arras laketu zait; zeren eta hura hemen ez denean, nehork ez baitit hitz egiten, eta aspertzen bainaiz: hura hemen denean, **aldiz**, elkarrekin kantatzen eta solastatzen dugu. Jon Muñoz

Beste batzuetan, **aldiz**, jokabidea aldatu eta nire gurasoez hitz egiten nion. oraindik ez naiz aitaren heriotzatik kontsolatu, eta ama galdu nuenean, **aldiz**, pozez zoratzen jarri nintzen. Ramon Saizarbitoria

Egutegi berria egiteko lanetan parte hartzea, **aldiz**, onartu zuen al Khaiamek. Jon Muñoz

Historia apur bat dakigunei, **aldiz**, de Gaulle zenak lehenbizian asmatu zuen Aljeriako Plan de Constantine hilortu hura gogorarazi digu egitasmo mirakulu horrek. Piarres Xarriton

Wells jaunaren asmakizunak, **aldiz**, oso urruti daude gaur egun ditugun ezaguera zientifikoen mailatik, beste aro bati dagozkio, edo gertakizunaren mugatik harago daude. Karlos Zabala

Filosofia, **aldiz**, balio unibertsal horien zientzia baizik ez. Joxe Azurmendi

Gizakiaren arima, **aldiz**, haren gorputza hil ondoan harengandik bereizi denean, bizirik dago betiko, harengana itzultzeko lehia handi batekin, bakoitzaren edo guztien berpizte egunean itzultzeko gisan. Piarres Xarriton

Ezin da ibai baten eta errepide baten arteko konparaziorik egin, errepideak historiako gauzak direlako eta ibaiak, **aldiz**, geografiakoak. Koldo Biguri

Forentsea, **aldiz**, hirugarren deiarekin harrapatu nuen. Aingeru Epaltza

Emaztea haurdun zegoela gaztigatu zigun gutunaren erantzunean, **aldiz**, nik ez nion ezteiaren poza zapuztu nahi izan: ez nion kontatu Ingok tuberkulosia harrapatu zuela eta medikuek ez zigutela inolako itxaropenik eman. Anjel Lertxundi

Aitzinera so eginez, **aldiz**, hantxe, jadanik, Puente la Reina famatua, gure Gares. Piarres Aintziart

Hemen, **aldiz**, ez dun sentituko bazter guztietatik isurtzen dela dirudien horrako usain hori eta garratza baino. Juan Garzia

Kostan, **aldiz**, bestelako kontuak gertatu ohi dira: Bilbon, 108 litro otsail bakoitzeko, eta Donostian, 124. lehen kapitulua dozenaka bider irakurri nuen; gero, **aldiz**, errazagoa egin zitzaidan dena, nire bizitzan irakurri dudan libururik zirraragarriena bihurtzeraino. Pello Zabala

Oraingo honetan, **aldiz**, burura datorkiona oso bestelakoa da. Jokin Muñoz

Kontzertuetarako, kontratu gutxiago; ordu gehiago, **aldiz**, etxean, pianoaren aurrean. Anjel Lertxundi

Herrian, **aldiz**, kanona malguagoa zen. Bernardo Atxaga

Gauza baten betegintzarreak ez du, beraz, haren existentzia kentzen, finkatzen baizik; gauzaren betegingabeziak, **aldiz**, ukatzen du. Piarres Xarriton

Eskuina, armada eta eliza katolikoa auzitegi militarraren epaiekin bat zetozen; liberalak eta intelektual ugari, **aldiz**, kontra. Karlos Zabala

Amak, berehala, aurpegia mokanesarekin ferekatu zion, arrebek **aldiz** erraten zutelarik mediku bat ekarrarazi behar zela. Daniel Landart

Pauek, **aldiz**, beharko du partida bat gehiago jokatu eta irabazi lehenbiziko mailan egoitekotan. Herria

Hego haizetik, **aldiz**, euria zetorren, eta euriarekin osasuna eta zer jana. Pako Aristi

Gure gainean dir-dir egiten duen argixka hori bera ere ez da iraunkorra izaten, **aldiz** ageri eta **aldiz** ezkutatzen baita, suzko ezpata distiratsuaren argia balitz bezala. Xabier Kintana

Emakumea izateagatik ate batzuk ireki egiten zitzaizkizun eta beste batzuk, **aldiz**, itxi. Ana Urkiza

Atzerritar askoren kasuan ez bezala, ordea, kutsuak ez zuen haren mintzaira nekagarri egiten, eta bai, **aldiz**, halako eztitasun berezia ematen. Joan Mari Irigoien

Kimikaren jatorria prestueza zen, edo ez garbi-garbia bederen: [...] alkimisten gelazuloak, haien ideien eta hizkuntzaren nahasmen gorrotagarria, urrearen alderako haien interes nabarmen aitortua, sortaldeko hitzontzi zein aztien jiteko haien tronpakeriak; fisikaren jatorrian, **aldiz**, sartaldearen argitasun bipila zegoen, Arkimedes eta Euklides. Juan Garzia

Palatalizazio adierazgarrian, **aldiz**, esanahiak aldarazten du ahoskunea. Lourdes Oñederra

Mekanika kuantikoaren ikuspegi zabal baten arabera, **aldiz**, ez da hain sinplea: katuaren egoera bizitzaren eta heriotzaren arteko zerbait da. Fernando Morillo

Nire aldetik, ez bakarrik posible, **aldiz**, probablea ere badela esango nuke, edozein ordutan, bere etxearen eta bere izebarenaren arteko edozein bidetatik, berak ezagutzen zuen edo bera ezagutzen zuen pertsona bat bera ere topatu gabe ibil zitekeela Marie. Koro Navarro

Beste aholku batzuk, **aldiz**, ongi etorriak izaten dira. Arantxa Iturbe

Hortxe dago tranpa, eta hargatik dira zahar jakintsu kontseilu-emaileak horren antojagarriak, eta maitagarria, **aldiz**, ez dakitela gozo-gozo aitortzen dakiten atso-agureen zuhurtzia ezjakintsua. Iñaki Segurola

2 (perpausaren hasieran)

Aldiz, *utilitas* eta, batez ere, *venustas* ezaugarriekin erlazionatutako arazoak diskurtso ez hain elaboratu eta nahasiagoaren eremuan sartzen dira. Santiago Iruretagoiena

Aldiz, **aldiz**, maite nuela ba! Menane Oxandabaratz

Aldiz, salaturik, berriz ere atxilotu, oraingoan urte erdiko kartzela ezarri, eta osasuna betiko hondatu zioten. Pello Salaburu

3 ***aldiz-aldiz***

Aldiz-aldiz, ordea, haserretu edo erotu egin direla esango zenuke. Gotzon Garate

---

aldiz[2] **1** *adlag* batzuetan, bestela.

Airoso eta mokaduak erraz harrapatuz zebiltzan, edo, **aldiz**, urduri eta bidea asko aldatuz zebiltzan. Pello Zabala

2 ***asko aldiz***

Telebixtak erakutsi du lehiaketa **asko aldiz**, zorigaitzez ez dugu jastatzen ahal izan bainan itxura ederreko janaria lantua zuen Hazpandar pareak. Herria

Asko aldiz, adiskidetasuna ahaidetasuna baino estimatuagoa zen. Pablo Sastre

---

aldiz[3] **1** *adlag* (zenbatzaile baten eskuinean, —bat izan ezik: ik **behin**— adierazten denaren gertatze kopurua adieraziz).

Bizi guztian ez ninduan bi **aldiz** sartuko eta. Pedro Alberdi

Hala ere, otsailetik aurrera hiru **aldiz** igo diete soldata Davidi eta haren lankideei. Iban Zaldua

Sekula ez nuen pentsatuko hainbeste gozatuko nuenik emakume bati honelakoak egiten, baina halaxe izan zen, zoroa bezala gozatu nuen eta beste hainbat **aldiz** korritu nintzen. Juan Martin Elexpuru

Gogoan dut goiz hartan hogeitik gora **aldiz** errepikatu nuela partida hura eta, ama etxeko atean sentitu bezain laster, harengana oldartu eta, porlan-hautsez zurituriko arropetatik tiraka, egongelaraino eraman nuela. Alberto Ladron Arana

Bi **aldiz** egin zuen laprast aldapan behera eta, lurra jota, lohiz itsustu zitzaizkion gaztaina koloreko prakak atzeko aldean. Hasier Etxeberria

Kopiatu ondoren, hirurehun bat **aldiz** ikusi zuen. Antton Olano

"Zure urtebetetzia", egunean hamar-hamabi bat **aldiz**, entzuleak buruz ikasteraino jarri izan zen ondorengo hilabeteetan. Iñigo Aranbarri

-Honaino bi **aldiz** etorri eta gero, zer gutxiago... - hasi zitzaidan Mikel, eta aulkiaren bizkarretik bere kazadora hartzearekin batera halaxe esan zion erruki aurpegiz begira zeukan Mireni, betiko irribarre hori ezabatu gabe -: Agenda bukatuko duzu zuk, ezta? Xabier Mendiguren Elizegi

Bi **aldiz** pentsatu gabe sartu naiz jende horren artera. Iban Zaldua

Seigarrenaren eta bederatzigarrenarengatik hamaikatxo **aldiz** kondenatua nengoen ordurako. Joxean Sagaztizabal

Jarraitu nuen nihaurk irriz, perpaus hori ehun mila **aldiz** entzuna bainuen Xiberoko Botza irratian, ikastola Sohütara abiatu zen garai latz haietan. Itxaro Borda

Kontu horrekin bizpahiru **aldiz** deitu zidan, eta dei horiek gero eta luzeago bihurtzen hasi ziren, antza. Xabier Olarra

Kontuak bi edo hiru **aldiz** esan ohi zituen. Fernando Rey

Bizkarrean jo zizuten, hiru **aldiz**, atzamarrakaz. Koldo Izagirre

Eta Imanolek biziki maite zituen lehengusuaren barrabil iletsuak, bereak baino hiru edo lau **aldiz** handiagoak zirenak. Aitor Arana

2 (ordinal baten eskuinean)

Bost urte zituen eskolara lehen **aldiz** joan zenean, edo eraman zutenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta ardoak, itsasontzi alemaniarretatik hainbesteko kuidadoz lehorreratuak, eta elkarri egiten genizkion promesak, edalontziek laugarren, bosgarren eta seigarren **aldiz** gainezka egiten zutenean. Ramon Etxezarreta

Leiho hartatik begira zegoen seguruenik Enrike Gabinek lehen **aldiz** ikusi zuenean, noiz eta, bilera keztatu hartan, arnasa hobeto hartzeko asmoz, patiora agertu zenean. Iñaki Iñurrieta

Begiak itxi eta hamaikagarren **aldiz** igurtzi zituen betzulo mugagabeak esku dardarati batez. Fernando Morillo

3 (denbora adierazten duen izenlagun baten eskuinean)

Biok aurreneko **aldiz** atera ginenean ere aipatu zidan kontu hori. Bernardo Atxaga

Azkeneko **aldiz** duzue aita edo senarra preso etxean edo beste inon. Joseba Zulaika

Eta kontra-adibide bat ondoren: baserri giroan hazitako basakristau moduko batek hala aitortu zidan behin: aurreneko **aldiz** zeinekin joko, eta arrebarekin jo omen zuela, eta morboaren batere arrastorik gabe kontatu zidan, sano-sano: bea zalie ta ni're bai: ze ingo giñean ba? Iñaki Segurola

Florenek bakardadea sentitu zuen aurreneko **aldiz** bere bizitzan. Eider Rodriguez

Azken **aldiz** ikusi nuenean, zuhaitz baten ondoan zegoen erorita, saihetsetik gangar beltzeko gezia ateratzeko ahaleginetan. Agustin Otsoa

Oisin barre algaraka ari zen, istorio hau lehenengo **aldiz** entzun balu bezala. Joanes Urkixo

Estatuaren oztopo guztiak gainditutа, eta auzi politikoak baztertuta, Erdi Aroko hiriek, eta bereziki kostaldekoek, aurreneko **aldiz** emango diote jarduera ekonomikoari beregaintasunez garatzeko aukera. Koro Navarro

4 *enegarren aldiz*

Zertarako balio du?, galdetu dio bere buruari **enegarren aldiz** autobusetik jaitsi eta ibaiari begira: uramil uherra egina dator egunotan. Pako Aristi

Roberto Mancini entrenatzaile berriarekin estiloa aldatu dute, eta **enegarren aldiz** tituluak irabazteko egitasmoa jarri dute abian Berria - Kirola

Enegarren aldiz, euskaldunen eskubideak bigarren mailan utzi nahi dituzte. Berria - Euskal Herria

Atzo eman zuten telebistaz, prentsak dakarrenez **enegarren aldiz**. Anjel Lertxundi

Klik, iragarkiak; klik, A3ko reallity show morbosoa; klik, **enegarren aldiz** programatutako film amerikarra; klik; klik; klik... gero eta azkarrago, atzamar potoloa ondo nekatu arte. Patxi Iturritegi

Mauritaniako gelazulo batean, lehoiz betaturiko gauean, Juan de Panoniaren aurkako akusazio konplexua birraztertu eta, **enegarren aldiz**, ebazpena justifikatu zuen. Juan Garzia

Jendea bazkaltzeko zain dagoenean arrimatu gara **enegarren aldiz** ekonomatoko leihatilara. Jokin Urain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

adina aldiz (12); **ainitz aldiz** (20); **aldiz aditu** (15); **aldiz agertu** (16); **aldiz agertzen** (12); **aldiz aipatu** (14); **aldiz aldatu** (23); **aldiz ari** (18); **aldiz ariko** (31); **aldiz ariko da** (17); **aldiz ariko dira** (12); **aldiz aritu** (31); **aldiz aritu da** (13); **aldiz aritu dira** (11); **aldiz arrisku** (19); **aldiz arrisku handiagoa** (17); **aldiz atera** (20); **aldiz atxilotu** (17); **aldiz atzeratu** (14); **aldiz aurkeztuko** (12); **aldiz bai** (16); **aldiz baino** (29); **aldiz baino ez** (14); **aldiz bakarrik** (18); **aldiz bederen** (13); **aldiz begiratu** (15); **aldiz bere** (56); **aldiz beste** (17); **aldiz bi** (18); **aldiz bigarren** (14); **aldiz bildu** (28); **aldiz deitu** (27); **aldiz edo** (15); **aldiz egin** (122); **aldiz egin zuen** (17); **aldiz egingo** (12); **aldiz egiten** (22); **aldiz egon** (33); **aldiz elkar** (11); **aldiz eman** (28); **aldiz entzun** (70); **aldiz entzuten** (11); **aldiz erabili** (20); **aldiz ere** (31); **aldiz erran** (12); **aldiz errepikatu** (63); **aldiz errepikatu zuen** (12); **aldiz errepikatzen** (15); **aldiz esan** (72); **aldiz eskatu** (27); **aldiz eta** (64); **aldiz etorri** (21); **aldiz europako** (12); **aldiz euskal** (22); **aldiz ez** (140); **aldiz ez da** (12); **aldiz ez ote** (29); **aldiz gainditu** (16); **aldiz galdetu** (12); **aldiz galdu** (26); **aldiz garestiago** (11); **aldiz gehiago** (120); **aldiz gertatu** (12); **aldiz gure** (17); **aldiz gutxienez** (40); **aldiz gutxienez esan** (27); **aldiz handiagoa** (80); **aldiz handiagoa da** (23); **aldiz hartu** (25); **aldiz hemen** (13); **aldiz hil** (13); **aldiz hitz** (20); **aldiz hitz egin** (15); **aldiz igo** (17); **aldiz ikusi** (110); **aldiz ikusi ahal** (14); **aldiz ikusia** (13); **aldiz ikusiko** (20); **aldiz ikusten** (27); **aldiz irabazi** (127); **aldiz irabazi du** (61); **aldiz irabazi zuen** (15); **aldiz irakurri** (30); **aldiz iritsi** (12); **aldiz izan** (79); **aldiz izan da** (26); **aldiz izan zen** (14); **aldiz izango** (12); **aldiz jantzi** (16); **aldiz jarraian** (48); **aldiz jarri** (17); **aldiz jaso** (14); **aldiz jo** (51); **aldiz jo zuen** (15); **aldiz joan** (32); **aldiz joaten** (13); **aldiz jokatu** (56); **aldiz jokatu du** (16); **aldiz jokatu dute** (12); **aldiz jokatuko** (46); **aldiz jokatuko du** (15); **aldiz joko** (14); **aldiz kontatu** (13); **aldiz lau** (12); **aldiz lehen** (12); **aldiz lortu** (18); **aldiz munduko** (12); **aldiz nire** (11); **aldiz parte** (22); **aldiz pasatu** (14); **aldiz pentsatu** (38); **aldiz pentsatu gabe** (17); **aldiz saiatu** (24); **aldiz sartu** (32); **aldiz segidan** (30); **aldiz zeharkatu** (11); **anitz aldiz** (18); **astean bi aldiz** (22); **aurreneko aldiz** (205); **aurten lehen aldiz** (24); **azken aldiz** (201); **azkeneko aldiz** (108); **bai aldiz** (13); **baino bi aldiz** (39); **baino bost aldiz** (21); **baino hamar aldiz** (26); **baino hiru aldiz** (34); **baino lau aldiz** (28); **baino mila aldiz** (28); **bat aldiz** (238); **bat aldiz gutxienez** (28); **batzu aldiz** (14); **batzuk aldiz** (16); **bederatzi aldiz** (17); **beste batzuk aldiz** (12); **beste bi aldiz** (20)

bi aldiz (868); **bi aldiz egin** (15); **bi aldiz gehiago** (20); **bi aldiz izan** (17); **bi aldiz pentsatu** (29); **bigarren aldiz** (288); **bigarren aldiz jarraian** (14); **bigarrena aldiz** (12); **bizitzan lehen aldiz** (16); **bizitzan lehendabiziko aldiz** (13); **bizitzan lehenengo aldiz** (15); **bizpahiru aldiz** (108); **bosgarren aldiz** (25); **bospasei aldiz** (16); **bost aldiz** (153); **bost aldiz irabazi** (16); **da lehen aldiz** (29); **dakit zenbat aldiz** (18); **dira lehen aldiz** (13); **dozena bat aldiz** (38); **du lehen aldiz** (21); **dute lehen aldiz** (24); **edo hiru aldiz** (35); **edo lau aldiz** (19); **egunean bi aldiz** (19); **egunean hiru aldiz** (15); **ehun aldiz** (61); **ek aldiz** (15); **enegarren aldiz** (14); **estreinako aldiz** (54); **eta aldiz** (37); **eta azkeneko aldiz** (11); **eta bi aldiz** (45); **eta bigarren aldiz** (13); **eta hainbat aldiz** (22); **eta hiru aldiz** (34); **eta hirugarren aldiz** (17); **eta lau aldiz** (15); **eta lehen aldiz** (41); **eta lehenbiziko aldiz** (11); **eta lehenengo aldiz** (16); **eta mila aldiz** (12); **eta zenbait aldiz** (19); **eta zenbat aldiz** (20); **guk aldiz** (22); **hainbat aldiz** (209); **hainbeste aldiz** (74); **hamabi aldiz** (16); **hamaika aldiz** (188); **hamaikagarren aldiz** (20); **hamar aldiz** (126); **hamar aldiz handiagoa** (14); **hamar bat aldiz** (14); **hameka aldiz** (11); **hau aldiz** (19); **hiru aldiz** (526); **hiru aldiz egin** (23); **hiru aldiz gehiago** (23); **hiru aldiz izan** (13); **hirugarren aldiz** (145); **hiruzpalau aldiz** (50); **historian lehen aldiz** (39); **hogei aldiz** (23); **honetan lehen aldiz** (13); **huntan aldiz** (13); **igandean aldiz** (14); **k aldiz** (12); **lau aldiz** (253); **lau aldiz gehiago** (14); **lau aldiz irabazi** (16); **laugarren aldiz** (43); **lehen aldiz** (1490); **lehen aldiz ariko** (17); **lehen aldiz bere** (14); **lehen aldiz egin** (12); **lehen aldiz eta** (11); **lehen aldiz ikusi** (27); **lehen aldiz irabazi** (14); **lehen aldiz jokatu** (13); **lehen aldiz jokatuko** (32); **lehen aldiz parte** (15); **lehen aldiz sartu** (11); **lehenbiziko aldiz** (126); **lehendabiziko aldiz** (182); **lehenengo aldiz** (397); **makina bat aldiz** (56); **mila aldiz** (179); **milaka aldiz** (13); **ni aldiz** (12); **nik aldiz** (19); **nuen lehen aldiz** (14); **orai aldiz** (20); **orain aldiz** (23); **pare bat aldiz** (78); **sei aldiz** (94); **seigarren aldiz** (14); **urtean hiru aldiz** (11); **urtean lehen aldiz** (14); **zazpi aldiz** (95); **zen aurreneko aldiz** (12); **zen azken aldiz** (12); **zen lehen aldiz** (64); **zenbait aldiz** (138); **zenbat aldiz** (284); **zenbat aldiz entzun** (14); **zenbat aldiz esan** (19); **zenbat aldiz ez** (62); **zenbatgarren aldiz** (14); **ziren lehen aldiz** (14); **zonbait aldiz** (24); **zonbat aldiz** (13); **zortzi aldiz** (36); **zuen aurreneko aldiz** (12); **zuen azken aldiz** (14); **zuen lehen aldiz** (53); **zuen lehenengo aldiz** (16); **zuten azken aldiz** (12); **zuten lehen aldiz** (30)

---

aldizka 1 *adlag* delako gertaeren artean tarte jakina dagoela; txandaka.

Erran nahi baitut esferetarik bat ere ez dela **aldizka** lasterrago, **aldizka** astiroago ibiltzen, baina bakoitzak, bere abiadura eta higitzeko erari dagokienez, bere lege naturalari men egiten diola. Xabier Kintana

Zer zoragarria haren kontzientziaren ausikien **aldizka** kausa eta **aldizka** garaile izatea! Jon Muñoz

"Eta zerbitzaritzat suzko garrak dira", eta esaten da bihurkari (-----hamitafeket) berauek aingeruak bihurtu egiten direlako (-----mitafekîm) **"aldizka** gizon, **aldizka** emakume, **aldizka** haize edo izpiritu, **aldizka** aingeru". Xabier Kintana

2 *aldizka-aldizka*

Nahiago nituen amerikar detektibe-istorioak, zeinetan **aldizka-aldizka** ankerkeria narrasa eta neska ederrak agertzen baitziren. Irene Aldasoro

Afalondoan, aldi batez haur eta aldi batez arrazoitsu, aldi batez jostari eta aldi batez sentikor, batzuetan baita libertin ere, plazer nuen irudikaturik zalduna bere haren-aren erdian dagerien sultan baten gisa, non **aldizka aldizka** ni bainintzen haren begietako sultanaren emazte bakoitza. Jon Muñoz

Bake hitzarmena leku bakartsuago batean berretsi zuten, eta agertokia, hutsik geratua, **aldizka-aldizka** bertze jokalariek bete zuten, berdintsu, eta batez ere bukaera berberaz. orobat batzuei ebasten borondatea, bertzeei niri kalte egiteko ahalbidea; baldin jakin izan badut, **aldizka-aldizka**, eta nire gostu aldakorrei jarraikiz, nire gibelean atxikitzen edo nigandik urrun aurtikitzen. Jon Muñoz

3 ***aldizkako*** *izlag* aldizka egiten edo gertatzen dena.

Sindikatuek aurkezturiko plataformekin **aldizkako** langileen egoera hobetu nahi dela adierazi zuten sindikatuek, langileak finko eginez. Berria - Ekonomia

Aldizkako langile finkoen kolektiboa utzi du at dekretuak, ELA sindikatuaren aburuz. Berria - Euskal Herria

Malariaren aurkako **aldizkako** tratamenduak haurrengan duen eragina aztertzeko bost proiektu jarri dituzue martxan, Afrikan. Berria - Gaiak

Bakarrik 16 lantegik enpleatzen dute aprendiz bat, bainan heren batek dio prest laizkela **aldizkako** lanean gazte bat hartzeko.

Aldizkako azterketa ginekologikoak egiteko exijitu diote Osakidetzari. Berria - Euskal Herria

Aldizkako argitalpenen aretoak 2.500 ale inguru bilduko ditu. Berria - Kultura

Igande goizean **aldizkako** kanpai-hots andanek iratzarri ninduten. Txillardegi

Diru premia larriak pasako ditu eta **aldizkako** lanak eginez biziko da. Itziar Otegi

Poliziaren **aldizkako** sarekadak ziren arazo bakarra. Berria - Harian

Makroeboluzioa eta **aldizkako** orekak. Askoren artean

Hala eta guztiz ere, adigai horietaz, ezagutza oroz bezala, beren ahalgarritasunaren printzipioa ez bada ere, beren sorkuntzaren **aldizkako** kausa bila daiteke esperientzian. Ibon Uribarri

Nik ez dakit **aldizkako** egoerak izatea irrikatu behar dugun, berez baitira egoerak orain zoriontsuak orain mingarriak, betiereko kondena bat bezala. Juan Kruz Igerabide

Jendea isil-isilik zegoen goialdeko leihoetara beha, handik, **aldizkako** dirdaien artean, itzalak igarotzen baitziren. Lopez de Arana

Jevonsek berak onartu zuen, ondorengo urteetan, "(merkataritzaren) **aldizkako** kolapsoak benetan mentalak direla beren izaeran, atsekabetasun, itxaropen, zirrara, etsipen eta izuikaran gertaturiko aldakuntzen mende daude eta". Iñaki Mendiguren

Rawlsen kontraktualismo berriaren inguruan **aldizkako** beste proposamen batzuk agertu ziren (esaterako, Habermas eta Appel-en politikaren adostasunezko teoria). Askoren artean

Barru iluna neoizko argi **aldizkako** eta keinukariz piztuko da. Joseba Sarrionandia

Times Square koloretako argi **aldizkakoez** beteta zegoen, distirazko uhindura gurutzatuez. Lopez de Arana

Hamabosten bat urte baziren han ari nintzela bakterio bikote ongi aukeratu batzuen sexu-batze **aldizkakoa** sustatzen. Juan Garzia

Gaitz kutsagarria da, eta, **aldizkakoa** bada ere, sendaezina. Xabier Olarra

Bero egiten zuen; lore berrien usain bat, usain herabea oraindik ere, **aldizkakoa**, arina, zebilen airean. Josu Zabaleta

4 ***aldizkako sexu harreman*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Aldizkako sexu harremanak edo sexu harreman esporadikoak denboran zehar iraunkorrak ez diren sexu harremanak dira, gehienetan pertsona desberdinekin noizean behin burutzen direnak. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aldian aldizka (5); **aldizka aldizka** (4); **aldizka egiten** (6); **aldizka eta** (6); **aldizkako azterketa** (3); **bat aldizka** (3); **dira aldizka** (3); **dute aldizka** (3); **eta aldizka** (22); **eta aldizkako** (3); **haurrentzako aldizkako tratamendu** (3); **urte aldizka** (5)

---

aldizkakotasun *iz* aldizkakoa denaren nolakotasuna.

Ez ditugu ezagutzen aldizkarien akuiluak literaturaren garapenean ziztatu dituen joerak, eztabaidak eta izaerak **aldizkakotasunak** dakarren egitura labur eta zatikakoa, esate baterako. Berria - Kultura

Ondorioz, tratamenduek ere bestelako **aldizkakotasuna** izan beharko dute. Berria - Euskal Herria

---

aldizkari *(ETCn **41.104** agerraldi)* **1** *iz* agerraldi tarte jakinez argitaratzen den izkribu inprimatua, eskuarki zenbait orrialde dituena. ik **kazeta**; **egunkari**; **astekari**; **hilabetekari**; **urtekari**[1].

Egunkaria, **aldizkaria** edo liburua, berdin dio; munduko herri aberatsetan, ahozkotasunaren bat-batekotik irakurketaren patxada geldira igarotzea izan da mende honen lehen urteetatik hasi eta ehun urte iraun duen gizartearen aldaketarik funtsezkoena. Pako Aristi

Beti izan dira etxean **aldizkari** eta egunkariak: euskarazkoak Eskualduna, Herria edo Gure Herria bezalakoak, baina baita frantsesezkoak ere. Ana Urkiza

Fotokopiatan ateratzen genuen **aldizkari** bat zen Sustraia. Ana Urkiza

Aldizkari bakoitzak bere erredakzioa zuen, bi koordinatzailerekin. Jokin Urain

Imagen de Venezuela deituriko **aldizkari** bat ateratzen du munduko enbaxadetan banatzeko. Pako Aristi

Aldizkari baterako artikulua idazten ari bazara, ordea, **aldizkari** bakoitzak ezartzen dituen arauak errespeta itzazu. Askoren artean

Ikasturtea amaitzen ari ginen, eta horra non bururatu zitzaigun bat-batean **aldizkari** bat egitea. Xabier Mendiguren Elizegi

Beste batzuk literatur talde bat antolatzen ari zirela esan zidan, **aldizkari** bat argitaratzeko asmoz. Mikel Hernandez Abaitua

Halleko besaulki batean eserita, Gladys **aldizkari** bat irakurtzen ari zen. Lopez de Arana

2 (mugatzaileekin)

Aldizkaria kaleratutakoan, metroko sarreretan saltzen genuen. Anjel Lertxundi

Artikulua idatzi nuen, eta, **aldizkariaren** zuzendaritzak onespena eman aurretik, Carlos Fuentesek Rulfori eraman zion. Juan Garzia

Egunak pasa ditu Goizeder Odriozolak, *Ardi Beltza* **aldizkariaren** Venezuelako korrespontsalak, prostituten elkarte batera deika. Pako Aristi

Anaitasuna **aldizkariko** partaide eta *Argia* **aldizkarian** erredaktore lanetan aritua. Ana Urkiza

Tomas Friedman-ek honakoa idatzi zuen New York Times Magazine **aldizkarian** 1999ko martxoan: Merkatuaren esku ikusezinak ez du inoiz funtzionatuko ukabil ikusezin baten laguntzarik gabe. Txema Ramirez de la Piscina

Orain bera duk "Euskal Erria" **aldizkariaren** zuzendaria. Txillardegi

Maurice Vaussard jaunak argitaratu zuen beraz 1923an, *Les Lettres* **aldizkarian**, Nazionalismoari buruz, orduko idazle, historialari, legelari, filosofo eta teologo ezagun andana baten iritziak biltzen zituen "Enquête sur le nationalisme" deitu ikerketa. Piarres Xarriton

Branka **aldizkariaren** sustatzaile izan zen, eta Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) kide gisa euskal pentsamenduaren garapenean funtsezko uztarria izan da. Askoren artean

1845ean euskal literaturako pasarteak hasi zen argitaratzen Baionako *Ariel* **aldizkarian**. Koldo Zuazo

1957an, *Syntactic Structures* argitaratu zen aldi bertsuan, Robert Lees-ek liburuari buruzko artikulu bat plazaratu zuen *Language* **aldizkarian**. Itziar Laka

Lance Armstrong txirrindulari estatubatuarrak bosgarren aldiz irabazi du Urrezko Bizikleta, Frantziako Velo Magazine **aldizkariak** urtero ematen duen saria. Berria - Kirola

Jakin **aldizkariak** euskalkien gaineko ale berezia atera zuen, eta bertan parte hartzeko gonbita egin zidaten: "Euskalkiak, askatu gabeko korapiloa" izan zen nire txostena. Koldo Zuazo

Literatura, publizitatea, irakaskuntza testuak, kazetaritza, esaera zaharrak, gertaera bitxiak, umeen jolasak, **aldizkarietako** denbora pasak, kantak, izkirimiriak... denetan zer ikusi eta zer ikasi izango dugu. Iñaki Arranz

Etxeratu eta piano gainean pilatutako **aldizkarietako** batean Tom Waitsi egindako elkarrizketa bat topatu dut. Harkaitz Cano

Iralka eta *Jakin* **aldizkarietan** eta Gara egunkarian artikuluak argitaratu ditu. Askoren artean

Aziendarentzako bide-estuen munduko diseinatzaile behinena bihurtu da halaber, eta haragi-industriako eta albaitaritzako **aldizkarietan**, artikulu zenbait argitaratu ditu neurri gizatiarrei eta tratu goxoagoari buruz. Xabier Olarra

77ko udaberrian ikurrinaren legalizazioaren alde egin ziren manifestazioei buruz Punto y Hora **aldizkariak** egindako erreportaia batean ageri zen. Alberto Barandiaren

La Cause du Peuple izeneko **aldizkariaren** zuzendaritza hartu zuen bere gain, maoistek eskatuta. Monika Etxebarria

Ali Lmrabet kazetariaren **aldizkariak** Marokoko monarkiaren aferak utzi zituen agerian. Berria - Mundua

Artearen Historia erakusten zigun fraideak taila haien laudorio bat idatzi zuen kolegioko **aldizkarian**. Bernardo Atxaga

Lanarena errepikatu diot, harako **aldizkariarentzat** erreportaia prestatzen ari naizela. Alberto Barandiaren

Baina hori baino lehenago, COUn nengoela, zientzia fikziozko ipuin batzuk egin nituen, gaztelaniaz, institutuko **aldizkarirako**. Iban Zaldua

Hainbat **aldizkaritako** zuzendari izan zen, eta modu berean errepikatzen ziren beti gertaerak: gau eta egun lan eginez, bere ardurapean zituen aldizkarien argitaraldiak biderkatu ondoren, arrakasta eta dirua lorturik, bat-batean depresiozko krisiak jotzen zuen, eta lur jota geratzen zen. Koro Navarro

Nire arretaguneak egitekoei lotuak dira, "ekintza-ingurukoak", eta nire denborapasako irakurketa, berriz, zientzia eta abeltzaintzaren inguruko **aldizkariz** osatua da gehienbat. Xabier Olarra

2 (izenondoekin)

Aldizkari ingeles bateko editoreak. Xabier Olarra

Trenerako ordua heldu artean, hoteleko bezeroentzat erosten zituzten **aldizkari** ilustratu horietako baten orri-pasa egon nintzen. Anjel Lertxundi

Astebete lehenago irakurria nuen **aldizkari** sentsazionalista batean talidomida hartu zuèn emakume dohakabearen kasua. Joan Mari Irigoien

Euskal heziketaz arduratzen den **aldizkari** interesgarri bat da. Herria

Aldizkari argazkidunak erakusten zizkigun frontoi atzean. Etiketa hori, nonbait, Business Week **aldizkari** ospetsuaren hotsandiko titulu horietako batean azaldu zen lehenengo aldiz 1997 urte aldera. Koldo Izagirre

Istorio horiek 70 eta 80ko hamarraldiko Estatu Batuetako **aldizkari** famatuenetan argitaratu ziren; literatura **aldizkari** txikietan ere agertzen ziren aldi berean. Koro Navarro

Arratsaldeko zortziak izango ziren neskameak txirrina jo zuenean, zeren Gortari **aldizkari** atzeratu bat irakurtzen ari baitzen saloi erdiko bonbilla bakarraren argipean. Patxi Iturritegi

Aspalditik nahi nuen zuri buruzko zerbait serioa idatzi, Saturday Evening Post edo Collier's bezalako **aldizkari** inportanteentzat. Fernando Rey

Bitartean, gorputza zailtzen nuen, eta **aldizkari** ilustratuek hegazkinlariari egindako elkarrizketak eta argazkiak biltzen. Anjel Lertxundi

Gaiari buruz dagoen materialik berriena aurkitu nahi baduzu, hoberena **aldizkari** espezializatuetara jotzea da. Askoren artean

Aldizkari kultural hark Sarriegi maisuak antolatzaile gisa zituen dohainak goretsi zituen. Askoren artean

Orain **aldizkari** medikoak besterik ez zuen irakurtzen. Fernando Rey

Sei ale argitaratu zituen *Abuztuaren 14a* **aldizkari** independente errepublikazale eta ausartarenak. Karlos Zabala

1885az geroztik Filippo Turatiren bikote-laguna izan zen, eta elkarrekin zuzendu zuten Critica Sociale izeneko **aldizkari** sozialista. Fernando Rey

1903an "Alma Española" izenburuarekin **aldizkari** erregenerazionista bat sortu da Madrilen, hor Pérez Galdós, Unamuno, Maeztu, Baroja, Pérez de Ayala-k kolaboratu dute. Joxe Azurmendi

Gazte hark, abokatua bera, frantses **aldizkari** erreakzionario batzuk irakurriak zituen, eta munduaren erdi-erdian zegoela iruditzen zitzaion, Hor dauzkagu **aldizkari** dotoreak, Integral, Cuerpo y mente... kontsumitzen erakusten digutenak Zer uste zuen, bada, lau **aldizkari** txepel irakurrita berak baino gehiago zekiela? Josu Zabaleta

Ileapaindegiko **aldizkari** arrosan kazetariak nazioko presidenteak baino askoz gehiago irabazten duela irakurri dut. Pako Aristi

Aldizkari tontoa izango da, baina mundu tonto honetan eredu bihurtzen ari dira hedabide masiboetan oinarritutako argitalpen hauek. Pako Aristi

Talde publikoak nahiago izan zuen bere datuak Nature munduko **aldizkari** pribatuen eta komertzialenean adierazi. Pello Salaburu

Kartzelan egina zegoenez, esan gabe doa **aldizkari** klandestinoa zela. Jokin Urain

L´Ilustration Française **aldizkari** zientifikoan, 1929an, argazki ikusgarri bat argitaratu zuten. Patxi Zubizarreta

Egia da badirela **aldizkari** elektroniko batzuk kalitatearen kontrolpean daudenak, baita bilaketa tresna batzuk ere -adibidez, Argus Clearinghouse- guneak aztertzen dituztenak. Askoren artean

Pertsiar Golkoko gerraren ondoren **aldizkari** islamiko bat jaso nuen, eta gogoan daukat bere lema: Estatu Batuak handiak dira, Errusia handia da, baina Ala askoz handiagoa da. Bernardo Atxaga

Simplicisimuss **aldizkari** satirikoko karikatura bat ematen zuen. Anjel Lertxundi

Badu jada bi urte ateratzen dela **aldizkari** deigarri bat haurrentzat. Herria

Dozena bat film porno baino gehiagotan agertua zen, eta sei edo zazpi aldiz **aldizkari** lizunetan. Oskar Arana

Begira, **aldizkari** zikin hori nire lagunaren eskuetan zegoen, baina hamar segundo lehenago nik neronek neukan, eta hogei segundo lehenago beste ikasle batek. Bernardo Atxaga

Aldizkari zantarrak eta bideo degeneratuak nonahi, baita uniforme urratu baten pusketak ere. Patxi Iturritegi

Baina **aldizkari** pornografikoaren kontu harekin ez nintzen hain aise libratuko. Bernardo Atxaga

Gaur egun, edozein **aldizkari** pornotan antzeko zakilak iragartzen dira, neurri guztietakoak. Karlos Zabala

-Baduk SSen **aldizkariaren** berri? -galdetu zuen Del Vallek-. Alberto Ladron Arana

"22 ebaki" da nire ipuin zaharrenetako bat, 83an idatzia eta urte bereko *Susa* **aldizkariaren** 9. alean kaleratua. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (izenlagun eta kidekoekin)

Animaliei buruzko japoniar **aldizkari** handi bateko korrespontsala zen bera. Jon Muñoz

Ingelesezko **aldizkari** ezagun batean irakurri du berria, *Medic Tribune* delakoan. *Liebkind Bendelek Das Worten* tankerako yiddishezko **aldizkari** bat argitaratzeko asmoa zuela-eta, ezagutu genuen elkar. Joan Mari Irigoien

Ni karlista **aldizkari** baten zerbitzutan. Txillardegi

Iturriozek lana aurkitu zion; medikuntzako **aldizkari** baterako artikuluak eta liburuak itzultzea. Josu Zabaleta

Matematikako nazioarteko **aldizkari** gehienen harpidedun zen. Jon Muñoz

Dekorazio psikodelikoa, modako **aldizkariren** batetik kopiatua seguru asko. Patxi Iturritegi

Marilyn Monroek zirti-zarta aitortu du egia, bihotzeko **aldizkari** horietako batean. Karlos Zabala

-Ulertuko duzu -segitu zuen Hollingworth andereñoak tonu berean, Monak hitz egin ez balu bezala- laguntza handia dela neska ezezagun batentzat punta-puntako **aldizkari** batean agertzea. Fernando Rey

Goi mailako ofiziala izanik eta SSetako morroi haien harrokeria ezagututa, ez zen arraroa izanen **aldizkari** alu haietan agertzeko irrikan egotea. Alberto Ladron Arana

Proiektuetan parte hartzea, beste tokietako ikertzaileekin lan komunak egitea, nazioarteko **aldizkarietan** lanak argitaratzea, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Science probetxurik gabeko **aldizkarian** argitaratu zituen datuak enpresa pribatuak. Pello Salaburu

Gau apaletan kuxeluz bezala etortzen zitzaidanean modazko eta bihotzeko **aldizkariak** oparitzen zizkidan. Itxaro Borda

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Francoren garaian **aldizkari**-zentsuratzaile izan zen, baina oso baldarra, apenas gustatzen baitzitzaion bere lanbidea. Joxerra Garzia

Aldizkari-saltoki bat dago lehen arraindegia zegoen izkinan, eta zenbait banketxe-sukurtsal berri. Iban Zaldua

-Ez, oraindik ez dut argazkia ebaki, begira -eta gonetako faltrikeratik ateratako **aldizkari** puska destolestu zuen-. Josu Landa

Kanpoaldean egunkari eta **aldizkari** pila bat erakusten zituen liburu-denda baten parean geldiarazi zuen aurki jakinminak Lauaxeta. Juan Luis Zabala

Lantegira itzuli, eta bi **aldizkari** multzoak irakurtzeari ekin zion berriz. Jon Muñoz

Aldizkari pilatxo bat zekarren besazpian. Alberto Ladron Arana

Liburu eta **aldizkari** taxuketan eman nuen ia aste osoa. Txillardegi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herri **aldizkari**, irrati eta telebistez ari naiz. berdeguneak handitzeko herri-taldeekin bilera, herriko presoei gutuna idatzi Gabonak zorionduz, udal-**aldizkarirako** artikuluxka bat idatzi. Txema Ramirez de la Piscina

Hollingsworth zeritzan emakume bat zen, zine-**aldizkari** bateko kazetaria, Monari elkarrizketa bat egin nahi ziona. Fernando Rey

-Oso ongi -esan zuen Heinrichek-, orduan ipuin labur gisa idatzi eta arte-**aldizkari** bati salduko diot. Fernando Rey

-Bai, Manuel de Falla, musika-**aldizkaria** -Del Valle une batez Weberren txundidurari begira egon zen, izu gorriko aurpegia itxuratu aurretik-. Alberto Ladron Arana

Hau ez da Fakultateko panfletotxoa, hau moda-**aldizkari** bat da -erasokor orain Jefea-, eta gure publikoa ez dira jipi progreak, ezta sasiletrauak ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Natur guneei buruzko artikulu bat da, zientzia **aldizkari** batetik aterea. Iñigo Aranbarri

Nazioarteko zientzia **aldizkarietan** lan ugari argitaratu ditu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Maiatz aldizkarian argitaratu zituen bere lehen literatura lanak eta, ondotik, literatura **aldizkari** askotan kolaboratu izan du. Ana Urkiza

Garai hartan hiriburu guztietan zegoen literatur **aldizkari** bat: Susa, Korrok, Pamiela, Maiatz, Kandela. eta Bilbok ere bere literatur aldizkaria izan behar zuela pentsatu eta horrela sortu genuen aldizkaria. Ana Urkiza

Groenlandian ateratzen den literatur **aldizkari** bakarraren zuzendari, berak ematen zuen maisu egokia. Bernardo Atxaga

"Ez dute begiek ikusten, buruak ikusten du", irakurri nuen behin Herodote geografia **aldizkarian**. Bernardo Atxaga

Ezkerreko eskuan mendi-**aldizkari** bat zuen. Unai Elorriaga

-Konturatu naiz, bestalde, egongelako mahai gainean kirol **aldizkari** piloa dagoela. Javi Cillero

Kritika-**aldizkaria**, hilabetekaria, Cesare De Lollisek sortua eta zuzendua (1863-1928). Fernando Rey

Zer aurkituko, eta, kutxa bete matematika-**aldizkari**, azken urteetan argitaratutakoak. Jon Muñoz

Diseinu grafikoko espezialista batek dekorazio **aldizkari** baterako atondutako bodegoi postindustriala. Aingeru Epaltza

Enekok telebista aurrean segitu du, ekonomia **aldizkari** bat esku artean zabalik. Patxi Iturritegi

Ordiziako urteroko jai **aldizkaria** izan dut iturrietan nagusiena Udan atera zuen ETAk Kemen bere barne-**aldizkariaren** lehenengo zenbakia, eta bigarrena, berriz, udazkenean. Patxi Zubizarreta

· BEHINOLA haur eta gazte literatura **aldizkaria** ere metaketa aldaera honen adibide dugu. Iñaki Arranz

7 aldizkari gordetzeko *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Bere aurpegia, multiplikaturik, **aldizkari-gordetzekoan**, eta gaur, edizio digitaletan barna. ETC-prentsa

Aldizkaritegia edo **aldizkari-gordetzekoa** aldizkariak eta egunkariak gordetzeko eta eskuragarri egoteko erabiltzen den altzaria da. ETC-entziklopedia

8 *aldizkari zientifiko*

L´Ilustration Française **aldizkari zientifikoan**, 1929an, argazki ikusgarri bat argitaratu zuten. Patxi Zubizarreta

Lan horren emaitzak **aldizkari zientifiko** hoberenetan publikatu dira, eta gaixo askoren eta, oro har, gizartearen esperantza indartu zuen. Berria - Gaiak

Horregatik kaleratu dugu ingelesez, **aldizkari zientifiko** gehienak ingelesez kaleratzen direlako. Berria - Euskal Herria

Zuk jasotako **aldizkari zientifiko** -filosofiko ugarietako batean ager zitekeen. Xabier Montoia

9 *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*

Maiatzean argitaratuko dira laguntzak jasotzeko baldintzak zehazten dituzten deialdi publikoak **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian** (EHAA). Berria - Euskal Herria

g 113.1: **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian** argitaratutako legearen testuan ez da ageri 113.1 artikulurik. Berria - Euskal Herria

10 *informazio aldizkari*

Putz ez zen **informazio** aldizkaria, sormenekoa baizik. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldizkari bat (74); **aldizkari batean** (27); **aldizkari baten** (23); **aldizkari eta** (43); **aldizkari hori** (13); **aldizkari ofizialean** (19); **aldizkaria ere** (11); **aldizkaria sortu** (12); **aldizkariak argitaratu** (12); **aldizkariak ere** (12); **aldizkariak eta** (22); **aldizkarian argitaratu** (27); **aldizkarian argitaratutako** (30); **aldizkarian argitaratutako artikulu** (11); **aldizkarian eman** (25); **aldizkarian eman dute** (20); **aldizkariaren ale** (13); **aldizkariaren arabera** (25); **aldizkariaren azken** (23); **aldizkariaren azken alean** (11); **aldizkariko zuzendaria** (16); **eta aldizkari** (42); **eta aldizkariak** (21); **eta aldizkarietan** (12); **jakin aldizkariaren** (12); **literatur aldizkari** (16); **literatur aldizkarien** (16); **nature aldizkarian** (12); **science aldizkarian** (19); **time aldizkariko** (12); **zientzia aldizkarian** (23); **zientzia aldizkarian eman** (16); **zientzia aldizkariaren** (13); **zutabe aldizkariaren** (15)

---

aldizkariño *iz adkor ipar* aldizkaritxoa.

Egun hotan hain xuxen SCOT horietarik batto azkarki aipatzen dute, haren izenean **aldizkariño** bat ere zabaldua izan baita, hori da Donibane Lohizuneko alde hortan muntatua dutena. Herria

Alta, hori da gertatzen "Altxa Mutillak"Itsas-Gazteria elkarteak argitaratzen duen **aldizkariñoaren** zazpigarren zenbakian. Herria

---

aldizkaritegi *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi) iz* aldizkariak edukitzeko altzaria; hemeroteka.

Aldizkaritegia edo aldizkari-gordetzekoa aldizkariak eta egunkariak gordetzeko eta eskuragarri egoteko erabiltzen den altzaria da. ETC-entziklopedia

Senarra sofatik altxatu zen, urduri samar, eta egur eta larruzko **aldizkaritegia** bota zuen mugimendu urduriaren ondorioz. ETC-literatura, saiakera

Irakurgai bakarrak landa-bizitzari buruzko aldizkariak dira, tximiniaren ondoan **aldizkaritegietan** jarriak. ETC-literatura, saiakera

Aldizkaritegira begiratu zuen besoa berriro luzatu baino lehen, badaezpada, hirugarren tranpa batean ez erortzeko. ETC-literatura, saiakera

Ez ziren **aldizkaritegia** erabiltzen ari, ikasten baizik. ETC-prentsa

Artxiboetan ibili nintzen, liburutegietan, **aldizkaritegietan**, erredakzioetan. ETC-prentsa

---

aldizkaritxo *iz adkor* aldizkari xumea.

Bide beretik, ahula eta umezurtza zen gure **aldizkaritxoa** Espainiako (are Europako) kideen artean. Txillardegi

Beizamako hilketaren ondoreneko hilabeteetan bi gerra paralelo gertatu ziren: bata egunkarien eta bertsolarien (eta euskarazko **aldizkaritxoen**) artean, bakoitzak bere hizkuntza erabiliz, eta bestea erdal eta euskal gizataldeen artean. Pako Aristi

Demagun 1 **aldizkaritxo** baten zuzendaria naizela: kalkuluak ateratzeko eta balioesteko nire espazio guztia da, lankide batzuk, zenbait harpidedun edo erosle eta irakurle tipo bat, publikazio kostuak, publizitatea, subentzioak, eta beste elementuren bat. Joxe Azurmendi

Ameriketako frontoietan biharamunean jokatu behar ziren kinielak **aldizkaritxo** baten antza zuen programan argitaratzen ziren egunero. Berria - Kirola

---

aldizkatu, aldizka(tu), aldizkatzen **1** da *ad* denboraren ildoan bi gauza edo gehiago txandaka gertatu; bi pertsona edo gehiago, zerbait egiteko txandaka aritu. ik **txandakatu**.

Legearen ondorioa zeren lau edo gehiago behar direlarik hautatu, proportzionalean egiten da eta, orduan, **aldizkatzen** dira emazteak eta gizonak. Herria

Orotara 80 bat talde **aldizkatuko** dira 20 gunetan. Berria - Kultura

Oraino ere uste du etorkinak bistatik igorri behar direla, ez dutela deus egitekorik Europan eta orain arte **aldizkatu** diren gobernuek Estatuko ateak sobera zabalik utzi dizkietela. Eneko Bidegain

Noizbait, beste gizonak txanda hartu zuen eta, horrela **aldizkatu** ziren, gauerdi hirian bentara iritsi ziren arte. Elena Touyarou

Aldizkatu ziren gauaz aita, ama, izeba xaharra. Michel Oronoz

Kapera betea zen astegunetan eta bereziki han iragan dugun igandean kofesatzaileak **aldizkatzen** ziren komunione anitz, Jainkoaren gana berriz itzultzen zirenak ezin-kondatuzkoak. Marzel Etxehandi

Sukaldean kanilaren tanta-jarioa eta metalezko esnagailuaren tiki-taka lehorra **aldizkatzen** edo batzen dira. Pello Lizarralde

22 kapitulu daude: 11 euskaraz, 11 frantsesez, **aldizkatuak**. Herria

2 du *ad* bi gauza edo gehiago txandan egin.

Japoniak bi herrialdeen arteko akordioak urratu zituela-eta, Estatu Batuek merkataritza-zigorrak eta yenaren balioa igotzeko presioak **aldizkatu** zituzten. Koro Navarro

Gramatika Nafarroan ikasi zuen, idazle klasikoak **aldizkatuz** giristinoen kantika eta otoitzekin. Piarres Xarriton

Bezperak kantatu ditugu arras gogotik, aire xahar eta berriagoak **aldizkatuz**. Herria

Begien orde bi xilo ttipi dituzte eta ahoaren orde sake baten idurikoa den aho xabal bat, ezpainik gabekoa; bertze batekoak hermafroditak dira, alde batetik badute bular bat eta bertzetik ez, zakila eta alua elkarren ondoan dituzte eta **aldizkatuz** dituzte erabiltzen. Aurelia Arkotxa

Abiatu ziren berriz beheiti gizonak, bi lerrotan, kantikak eta arrosario hamarrekoak **aldizkatuz**. Michel Oronoz

Khersongo benetako lurjabe bat bezala irudikaturik bere burua, mota guztietako hobekuntzak aipatzen zituen -soroetako landareak hiru urtetik hiru urtera **aldizkatzea**, esaterako-. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldizkatuko dira (18)

---

aldizkatzaile *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* **1** *izond* alternoa.

2 *korronte aldizkatzaile* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Modu horrek gurpil birakari handiak erabiltzen ditu, lurpean kokatzen direnak, eta **korronte-aldizkatzaile** bat mugiarazten lehenak direnak elektrizitatea sortzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Inpedantze elektrikoaren kontzeptua Ohmen legea **korronte aldizkatzaileko** (KAko) zirkuituen analisirako orokortzeko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

---

aldizkatze *iz* denboraren ildoan bi gauza edo gehiago txandaka gertatzea; bi pertsona edo gehiago, zerbait egiteko txandaka aritzea.

Kontseilari berri bat sartu da, Bernard Carrere ostalera, Paul Badiola auzapez ohiaren zerrendakoetarik, beren artean hola hitzartuak baitziren, artetan **aldizkatze** batzuen egiteko. Herria

Ezer ez litzateke faltsuagoa izango eraketa diskurtsiboen azterketan **aldizkatze** totalitario baten ahalegina ikustea baino. Xabier Arregi

Horiek guziek badituzte beren permisione eta **aldizkatzeak**, emazteek aldiz familiako gorabeheretan kudeatzeko, haurrak, eskola, diru beharrak eta zernahi kezka mota. Herria

---

aldizkotasun ik **aldizkakotasun**; **behin-behikotasun**.

---

aldosa *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi) iz* aldehido taldea duen monosakaridoa.

Azukreak **aldosa** eta zetosa gisa sailkatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eritrosa C4H8O4 formula duen monosakaridoa da, **aldosa** bat dena. ETC-entziklopedia

Izan ere, glukosa **aldosa** bat da (COH taldea du lehenengo karbonoan) eta fruktosa zetosa bat (zetona taldea duelako). ETC-entziklopedia

Karbonilo taldea (C=O) lehenengo karbonoan badago **aldosa** izango da, eta bigarrenean badago, aldiz, zetosa. ETC-entziklopedia

Monosakaridoen ziklazioarekin erlazionatuta dagoen prozesu hau, 5 karbono baino gehiagoko **aldosa** edo zetosa batean gertatzen da. ETC-entziklopedia

---

aldosterona *(corpusean ez dago; ETCn **87** agerraldi) iz* giltzurrungaineko guruinaren azalak jariatzen duen hormona esteroidea.

Gaur egun errenina-angiotentsina-**aldosterona** sistemaren gain egiten dira ikerketa-lanik gehienak, aldi berean hipertentsioa eta giltzurrunaren funtzioa kontrolatzen saiatzeko. ETC-prentsa

Sodio-kontzentrazioa baxua izateak estimulatu egiten ditu ADHa (hormona antidiuretikoa) eta **aldosterona**, eta, horren ondorioz, gorputzak ura eta gatzak atxikitzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Odola galduz gero edo odol-presioa baxua izanez gero, kortex adrenala estimulatu egiten da eta **aldosterona** gehiago jariatzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldi berean, angiotentsinak giltzurrun-kortexetik **aldosterona** jariatzea eragiten du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi hormona horiek diuretikoak dira, eta giltzurrunak renina eta giltzurrun gaineko guruinak **aldosterona** jariatzea ekiditen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldosterona hormona esteroidea da, hots, talde ziklopentano-perhidrofenantreno du egitura nagusitzat (17+3 C). ETC-entziklopedia

Giltzurrungaineko azala, zehazki, da kaltetuena, kortisol, kortisona eta **aldosterona** jariatzen dituena. ETC-entziklopedia

Azalak kortisona, kortisola eta **aldosterona** hormonak jariatzen ditu (hormona esteroideak). ETC-entziklopedia

Diuresia gernua giltzurrunetan jariatu eta iraizteko prozesua da, hormonaz erregulatutakoa (hormona antidiuretikoa eta **aldosterona**). ETC-entziklopedia

---

aldra **1** *iz* talde handia. ik **alde**; **aralde**; **saldo**[1]; **samalda**; (pertsona eta kidekoena)

Horrela, gaiztoen **aldraz** inguraturik, burua gora eta eskuzabal ibiltzen zen Babiloniako kaleetan zehar. Askoren artean

Eriak, hiriak utzi, eta harengana joaten ziren, eta jende dohakabezko **aldra** batez inguraturik zegoen. Juan Garzia

Haur zikin **aldra** bat zebilen kalean. Irene Aldasoro

Lintxamenduak ezker zein eskuin, **aldra** paraofizial zein iraultzaileetan izan ditu aldekoak, baita Lynch bera jaio aurretik ere, jakina. Iñigo Aranbarri

2 (pertsona eta kidekoena, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizaki batzuk maltzurrak dira, eta gizaki **aldrak** jakituriaz gobernatzeko, behar-beharrezkoa da gizakirik maltzurrenak ere, diren baino hobeak direla uste izatea. Andres Urrutia

Zurrunbilo bat bailitzan igaro zen jende **aldra** hura hiriko kale nagusietatik, eta doktorearen etxearen kontra hautsi zen. Josu Zabaleta

Ume **aldra** bat dauka inguruan. Javi Cillero

Han militar, polizia zein zibil **aldrak** ageri ziren tente, ezin dotoreago jantzirik, oroigarri-plaka distiratsuak goratuz, musika banda eta guzti. Jon Arretxe

Soldadu-**aldra** eta soldaduen atzean berriro osatu den samalda zakarra ordurako iritsia zen Pierre Lancreren jauregira justizia eske. Anjel Lertxundi

Harringtonek Ingalaterrako errepublika besterik ez zuen ikusten; idazle-**aldra** batek, aldiz, desordena aurkitzen zuen koroarik ikusten ez zuen leku guztietan. Iñaki Iñurrieta

Erregeak haien ezpainetatik ezagutu zuenean Durangon gertatzen ari zena, aginte handiko bi ordezkari eta soldadu taldea bidali zituen heretiko **aldra** hura guztia atxilotzeko. Fionn bere lagun **aldrarekin** batu zen jazotako guztia ospatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

"Erantzunik gabeko maitasuna" izena zuen gaitz sendaezin hartaz hala sufriarazten ari zen nagusi gaztearentzat ukendu eta leungarri izan zedila eskatu zion Barbarari, askotan itxaropen izpi batek sendagile **aldra** batek baino gehiago egin baitzezakeen, hitz goxo batek botika onenak baino on handiagoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kortes kalerantz abiatzen diren emakume beltzak, arropa estuekin, eta jonki **aldra** kantoi batean. Sonia Gonzalez

Bat-batean, zonbi **aldra** batek inguraturik ikusi zuen bere burua. Xabier Montoia

Militarrez jantzitako soldadu espainol **aldra** bat sartu da elizara. Txillardegi

Eta sinetsi ere ez dut sinesten, demonio **aldra** batek gure herria suntsituz gero, gutarikoak defendatu gabe geratuko direnik. Joanes Urkixo

Gerrako preso zarpail **aldra** bat, zuhaitz baten azpian euritik babestu nahian, eta lokatzez lohitutako uniforme-jantzian. Mirentxu Larrañaga

Adurra darien nazkante **aldra** artetik eskatu du Heinekena, eta ron guito bat. Sonia Gonzalez

Itxurazko gobernua eta agintari atzerritarrak dituen armada, burua moztutako soldadu-**aldra** zikiratua! J.M. Olaizola "Txiliku"

Iritsi aurretik, Urdaibaiko zeruaren gorriak eta Bilborantz ihesean zihoazen gizon-emakume **aldrek** zentzuz bete zituzten Euzkadiko Jaurlaritzako informatzailearen hitz alarmagarriak. Lutxo Egia

3 (animaliena)

Ahari-**aldra** bat iragan balitz bezala harrotu zen hautsa haien atzean XIX. mendean, milaka eta milaka buruk osatutako bisonte **aldrak** desagertu egin ziren Estatu Batuetako belaze amaigabe haietan. Jose Morales

Piztia baten apatx erdibituak utzitako oinatzaren atzetik bidalitako txakur **aldrak** beraganaino garamatza, eta ahate zuriak, Erromulotarren gotorlekuaren zaintzaileak, giza usaina urrundik somatzen du. Begiak itxi eta txori **aldra** bat ikusten dut. Xabier Amuriza

Mundu hurbila, Europako bazterrik ezagunenak eta ezezagun batzuk ibili ondoren, nazioz nazio eta hiriz hiri, bere sorterrian karrikaz karrika ibilki amaitu zuen, nola kaio **aldrak** itsasontzien atzetik, halaxe haur eta neskek biolinaren doinura jarraitzen ziotela da Rua eroari, kairaino gehienetan. Felipe Juaristi

Antxeta **aldra** batek, zalaparta gaitzetan, San Martin auzo aldera jo zuen; haratago abian itxuraz, Egia, Loiola eta Ametzagañaruntz. Txillardegi

Nire ustez txori talde hura antzara-**aldra** bat zen, besterik gabe. Txillardegi

Kaioak eta antxetak, normalean baino karrakagileago, Azoka gaineraino, are Hegoalderago ere, azaldu ziren **aldra** handitan. Txillardegi

Gehiegi hurbildu baitzen katutxo jaio berrien ume-**aldrara**, katu-amak, muzindu, puzka hasi, eta behatzetatik burugaineraino latz-harrotu zituen ileak. Juan Garzia

4 (bestelakoena)

-Ezton posible!... Hegazkin **aldraren** pase lilluragarrixa... eta gero Jentilsolotik ikusi nayonan hegazkiña Bilborako pasaeran. Txillardegi

Ezkerretara, han, Rouen, teilatu urdinezko hiri zabala, kanpandorre gotikoen **aldra** puntazorrotzaren azpian. Josu Zabaleta

5 ***aldran*** talde handian.

Han ibiltzen ginen gu ere **aldran**, gure galtza laburrekin, ilea berlindarren estiloan busti eta buruaren erdiko arraiarekin alboetara orraztuta, besoa erromanoen moduan artez aurreruntz altxatuz, gure egurrezko eskopetekin festa ederrean. Joseba Sarrionandia

Üthürraltarrak etorri zituan **aldran** Espainiako ahaidiak agurtzera. Txillardegi

Txakurrek **aldran** bezala. Oskar Arana

Orain oinaztua nola sortzen da eta halako bultaz, ezen zartako batean dorreak arraila baititzake, etxeak eraits, habeak eta zutabeak erauz, heroien monumentuak loka eta uzkail, gizakiak hil, aziendak **aldran** akaba? Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldra bat** (14); **aldra batek** (6); **aldra baten** (4); **aldra handia** (3); **jende aldra** (7); **soldadu aldra** (4); **txori aldra** (4)

---

aldraka *adlag* aldran.

Sabai zerura irekitik **aldraka** ikusi nituen pasatzen zozoak. Juan Garzia

Argiaren maitale eta arratseko ilunaren etsai diren larretxoriak, santuaren igarotze orduan, gaua gainean zen arren, **aldraka** etorri ziren santua zegoen etxeko teilatu gainera. Askoren artean

Putre zikinak **aldraka** jausi zitzaizkion gainera, odol egarriz, putasemeak. Karlos Linazasoro

Gizonak, emakumeak eta gaztetxoak **aldraka** ailegatzen ari ziren, etengabe, Urbi izeneko tokira, non Nerbioi ibaiak beste korronte batekin bat egiten baitzuen. Joanes Urkixo

Hurbilago, parketxoa inguratzen duen zirkulu bat osatuz, **aldraka** eseritako jendea, tribuan zerbait konpartituz: kostoa, anfetak, gaueko epela, bakardadea, etxerik eza. Pako Aristi

Ideal baten izenean inor hiltzea kondenagarria da, baina oso ekintza zuzena da aberriaren izenean **aldraka** hiltzea. Koldo Izagirre

Harrezkero, **aldraka** makurtzen ziren izurrira eta heriotzara. Xabier Amuriza

Letrak **aldraka**, udazken partean zozabarrak bezala. Anjel Lertxundi

---

aldratxo *iz adkor* aldra xumea.

Harago, itzaletan, defuntuen otoitza errezatzen hasteko berandutzen ari zitzaien **aldratxo** bat emakume. Juan Garzia

---

aldrebes **1** *adlag* okerreko aldera.

Interesatzen nauena da gauzak **aldrebes** hartzea, akatsak kalitate bilakatzea. Berria - Kultura

Garai hartako film komikoetan protagonista baserritar inozo eta trakets bat izaten zen sarri askotan, hirian edo gizartearen goi-mailako giroan dena **aldrebes** egiten zuena. Joseba Urteaga

Aldrebes ahoskatzen zituen Tomasek erreak, eta izen handiko kapitaina izandakoa zen. Unai Elorriaga

Horretan bat netorren berarekin, aitak aita izan behar baitu lehendabizi eta semeak ere behar du hori jakin, gerora okertu eta **aldrebes** ibiliko ez bada. Hasier Etxeberria

Dena **aldrebes** bihurdikatu zitzaion ezen, larrua salbaiki jo eta koman zegoela irudiz, motel bateko gela beilegi nazkagarri batean gaindosiaz hil zitzaion Monika. Itxaro Borda

2 alderantziz; atzekoz aurrera.

Izan ere, **aldrebes** ulertu dituzue zuek Jainko bizi, Jaun ahalguztidun eta Israelgo Jainkoaren hitzak. Elizen arteko biblia

Horixe baita inbertsioa: segida baten osagaiak **aldrebes** jartzea. Iñaki Arranz

Obsesioz sikatu zuen gorputza, beraz, eta sikatzen ari zen bitartean pentsatu zuen: Anak bera harrapatu bazuen dutxan, **aldrebes** ere izan zitekeen hurrengo batean, berak harrapatu zezakeen Ana. Unai Elorriaga

Euskara indartzeko beste tresna indartsu bat, eskola da, eta hor ere **aldrebes** ari gara guztiz; euskara jakintza gai teorikotzat harturik, ondo bizitzeko, libertitzeko eta arrakasta izateko tresna behar duela ahaztuta. Joxerra Garzia

Enrique Berruga enbaxadoren arabera erakundea munduaren egoera geopolitiko berrira moldatu behar da eta ez **aldrebes**: "Erakundea beste garai batean sortu zen eta ez ditu gaur egungo erronkak aintzat hartzen". Berria - Mundua

Seguru asko Marcosek baietz eta Mariak ezetz esaten zutelako, edo **aldrebes**. Unai Elorriaga

3 *izond* traketsa, okerra; bururik ez hankarik ez duena.

Gurasoen mundu **aldrebes** hau ez degu onartzen. Joxerra Garzia

Halatsu daude beste hamaika gauza ere nire bizitza **aldrebes** honetan: urdina behar zuen lekuan, gorria, eta beste aldera. Hasier Etxeberria

Santos, azaldu diozu inoiz Joseluri zergatik daukazun ibilera **aldrebes** hori, herren moduko pausokera hori? Josu Landa

Zergatik dago Izarraizko *Alabier* baserria dagoen toki malkar eta ezleku **aldrebes** hartan? Alaxe bier. Iñaki Segurola

Hiru aldiz errepikatu behar izan zidan amak izen **aldrebes** hura eta, hiruretan, erantzun gisa "zer? Alberto Ladron Arana

Txantxari baten pare jardun nuen, jira-bueltaka, etxe handiagoaren bila, baita, Zabalgunean aurkitu ondoan, hortik segitu ziren urrats **aldrebes** guztiak eman ere: bankuekin borrokatu, ahalik eta mailegurik merkeena erdiesteko; saltzaileak lausengatu, erosketa abantailosena egin beharrez. Aingeru Epaltza

Osasunak nahikoa izan zuen aurkariaren hankasartzeen zain ibiltzea: gutxigatik ez zuen Labakak bere atean gola sartu, Albertorekin izandako gaizki ulertu **aldrebes** batean. Berria - Kirola

Ibrahimovitxek arean galduta zebilen baloiaren atzetik jauzi egin, eta orpoz era **aldrebes** bezain ikusgarrian eman ostean sartu zuen gola. Berria - Kirola

Ez dakit jokaera **aldrebes** honen arrazoia. Iñigo Aranbarri

Normala gehiengoak egiten duena da, eta anormala, berriz, talde guztietan izaten diren lau **aldrebes** horiek egiten dutena. Luis Elberdin

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldrebes eta** (3); **aldrebes hori** (3); **aldrebesa da** (4); **aldrebesa izan** (4); **aldrebesa izango** (3); **bezain aldrebesa** (4); **dena aldrebes** (4); **edo aldrebes** (3); **eta aldrebes** (4); **eta aldrebesa** (4); **eta ez aldrebes** (3); **ez aldrebes** (4); **hizkera aldrebesaz** (3); **izen aldrebesa** (3)

---

aldrebesaldi *iz* une edo aldi aldrebesa.

Ez dira hautsi, baina guk **aldrebesaldi** batean ez ditugula berriro desestaliko eta argitara aterako zin egina daukagu. Iñigo Aranbarri

aldrebeseko *(orobat **aldrebesko**) izlag* alderantzikoa.

Bera, ordea, **aldrebeseko** lekuan zegoen jaiotze beretik, birigarroaren habian jaiotako kukua bezala edo alderantziz. Hasier Etxeberria

- Nik ez diat **aldrebesko** eskolarik, motiko. Patziku Perurena

---

aldrebeska *adlag* okerreko aldera, aldrebres.

Gipuzkoar-gipuzkoar batekin ari garelarik, bada zaindu beharreko lexiko bat, esan ezin diren eguneroko hitzak (anderie, bebarrue, merixue...); **aldrebeska** uler ez gaitzaten geure erara ezin esan ditugunak (erabat, herio...). Iñigo Aranbarri

Gramatika aldetik zuzenak-edo izan daitezkeen esaldiak korapilatuak eta **aldrebeska** ageri zaizkigu hizkuntzaren erabileran, usu gramatikari eta, batez ere, erabilerari, izugarriko ostikoak ematen zaizkiola, naturaltasuna alboratuz edo, hobeki esateko, ostikoak naturaltasun handienarekin emanez. Pello Salaburu

---

aldrebeskeria **1** *iz* bururik ez hankarik ez duen egintza edo esana, gaitzesgarritzat markatua.

Burugabekeria bat da, **aldrebeskeria** bat, pentsatzea pertsona batek beteko zaituela bizitza guztian eta behar dituzun gauza guztietan. Pako Aristi

Irribarre egin nuen neure baitarako, bezperan Angelak erraniko **aldrebeskeriak** gogoan. Alberto Ladron Arana

-Ez didazu erranen **aldrebeskeria** horiek sinesten dituzula? Alberto Ladron Arana

Zure **aldrebeskeria** aitortu beharrean, besteei egozten diezu errua. Itziar Otegi

Gauza ezaguna da esaldiak hizkuntza batetik bestera aldatzen direnean sortzen diren **aldrebeskerien** kontua. Pello Salaburu

Eta hala aletzen dugu, pozarren, **aldrebeskerien** bilduma hori. Iñigo Aranbarri

Non ikusi duk horrelako **aldrebeskeriarik**, egileak editoreari afaria ordaintzea, ez dakik ezer harreman publikoez. Jon Alonso

"Aldrebestasuna" ez, eta **"aldrebeskeria"** baizik onartzen ez duen gramatika asmatu duen herria nahiko aldrebesa ote den. Joxerra Garzia

2 (izenondoekin)

Hain **aldrebeskeria** handia zen delako salbatzailea ni neroni izaten ahal nintzela pentsatzea? Aingeru Epaltza

Non ikus daiteke **aldrebeskeria** handiagorik? Pello Salaburu

Aldrebeskeria barkaezina. Alberto Ladron Arana

Erregeren estatu-politikako aginduetakoren batek **aldrebeskeria** nabarmenen bat eragiten zuenean, serioski aldarrikatzen zen Goi Kontseiluko zenbait kideri lepoa moztu zitzaiela, eta marmarrak isiltzen ziren. Xabier Olarra

Erranen dizut zer pentsatzen dudan afera honetaz: Parisko lana **aldrebeskeria** hutsa izan zela pentsatzen dut. Alberto Ladron Arana

Gaurko jendeok zorionez dakigunaren arabera, izurria Naturaren halabeharrezko agerpen bat besterik ez da, haren **aldrebeskeria** asmogabearena. Xabier Olarra

Diskurtso faltsu -eta hau da arriskurik handiena- baina koherente hura, ez zela sekula zuzentzailearen burutik haratago atera, ez zela bere **aldrebeskeria** fabulatzaile eta irrigarria baizik izan. Jon Alonso

Dotorezia narras hori, **aldrebeskeria** handiusteko hori zen Kaskagorriren bereizgarri nagusia. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan)

Ez zegoen nondik heldu **aldrebeskeria** sorta hari. Alberto Ladron Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldrebeskeria handia** (4)

---

aldrebestu, aldrebesten **1** da/du *ad* aldrebes ezarri.

Egoitzatik irtetean, langileei azalpenak eman zizkietenean, giroa **aldrebestu** zen berriro ere. Berria - Ekonomia

Egoera **aldrebestu** egin zaizue, eta zaigu, eta ezegiteko bat baino gehiago egitera behartuta sentitu naiz. Patxi Zubizarreta

Eta bizitza, nolabait esan, **aldrebestu** egin zitzaion. Irene Aldasoro

Pena eman zidan gauzak zaildu eta **aldrebestu** izana. Joxan Elosegi

Erabat **aldrebestu** da lau t'erdiko txapelketaren ligaxkako azken jardunaldia. Berria - Kirola

Han goitik behera **aldrebestu** zuten, ingeniari bihurtu arte. Unai Elorriaga

Nik ez nuen egoera nahasi hura are gehiago **aldrebestu** nahi. Patxi Zubizarreta

Halako batean, ordea, hizpide aldaketa batek, arrunta oso bestalde, gaua **aldrebestu** behar zion. Migel Angel Mintegi

Izenaren ordez zenbaki bat zeukan batek esan zinan burua nahastuko ziola... ahaztu behar ez zituen gauzak ahaztaraziko zizkiola eta gogoratu behar ez zituen gauzak gogorarazi, eta ez zuela burua **aldrebestu** nahi. Bitarteko distantzia handiegia bada, ostera, aireak nahitaez hitzak nahastuko eta ahotsa **aldrebestuko** du, auretan zehar hegan datorrela. Anton Garikano

Eguna **aldrebestu** samarra etorria zen hasieratik eta bigarren ardo botila erdi husturik zegoen ordurako. Joxemari Iturralde

2 (era burutua izenondo gisa)

Beste gauza bat da gainerako hizkuntza **aldrebestu** batzuk (gaztelania barne) dezifratzen hasten denean sistema bera erabiliz. Berria - Kultura

%12tik gorako pendizean tropela txikitu zuen lau ile **aldrebestu** eta betaurreko beltz erraldoiak zeramatzan karreristak. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldrebestu eta** (3); **aldrebestu samarra** (3)

---

aldudar *izlag/iz* Aldudekoa, Alduderi dagokiona; Aldudeko biztanlea.

Aldudar seme horrek, beti herri hortarik urrun higatzen zena, galdua zuen itxuraz bere mendi-herri hartako itxura eta treitua: jauntzitan beti ontsa emana, euskaraz ari zelarik doi bat hitzak apainduz ari, beste gisan erdal mintzairalat zen maiz lerratzen. Herria

Bazkari denboran, Magali Zubillaga **aldudar** kantariak lagundurik, bazkaltiar guziek kantatzen ahalko dituzte Xalbadorren bertsu asko. Herria

Beraz pentsatzen ahal da **Aldudar** kotsia bazela Erramu egun hortan Baigorriko elizan. Michel Oronoz

"Izarrak" taldea, hortan direlarik Emmanuelle Luro eta Sophie Oteiza bi **aldudar** gazteak beren bi bankar lagunekin, Celine Bidart eta Kattin Intxauspe. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahalko dituzte aldudarrak** (3); **aldudarrak batasuna** (3); **aldudarrak batasunak** (6); **aldudarrak bideo** (29); **aldudarrak bideo elkarteak** (10); **aldudarrak bideok** (4); **aldudarrak bideora** (3); **aldudarrak bideora deituz** (3); **bi aldudar** (3); **dituzte aldudarrak** (3); **dituzte aldudarrak bideora** (3); **du aldudarrak** (3); **eta aldudarrak** (6); **zubillaga aldudarrak** (3)

---

aldun ik **ah**aldun.

---

aldundi *(ETCn 47.464 agerraldi)* **1** *iz* Hego Euskal Herriko eskualde bakoitzeko diputatu edo ahaldunek osatzen duten erakundea. ik **diputazio**.

80ko hamarkadan, gazte lizentziatu berri haiek eskola, institutu eta fakultateetan lanean hasi ziren batzuk, beste batzuk **aldundi** eta udaletan jarri ziren itzultzaile, edo euskararen teknikari. Iñaki Iñurrieta

Aldundi eta udaletxe bakoitzean negoziatzeko asmoa dute LAB eta ELAk. Berria - Ekonomia

Aldundi zein udalerrietako agintariek oso kontuan hartu beharko lituzkete datuok. Berria - Euskal Herria

Horri buruz 4.000 toki eskaini dituzte Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako hiru **Aldundi** edo probintziek. Herria

Funtzionario bakar batzuen jokamoldea dago zalantzan, ez **Aldundi** osoarena. Berria - Euskal Herria

Sanzek berretsi zuenez, mobilizazioei eta lanuzteei eutsiko diete, "erakundez erakunde, udalez udal eta aldundiz **aldundi** negoziatzeko prozesua ireki arte". Berria - Ekonomia

Rabanerak emandako datuen arabera, 2000tik 2005era Eusko Jaurlaritzak bere zorratik 800 milioi euro kitatu zituen, eta, tarte berean, **aldundi** guztien arteko zorpetzea 600 milioi euro handitu zen. Berria - Ekonomia

Gipuzkoako **Aldundiak** auto ilaren arazoa konpontzea nahi dute. Berria - Euskal Herria

Errauste plantez gain, gai kutsakorrak sortzen dituzten industriak daudela argudiatzen du **Aldundiak**. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako **Aldundiak** auto ilaren arazoa konpontzea nahi dute. Berria - Euskal Herria

Bisoi europarrik Kataluniara ez bidaltzeko eskatu diete **aldundiei**. Berria - Gaiak

Poliziak tratu txarrak baieztatzen baditu, gizonezkoa atxilotu egingo du, eta, emakumeak etxetik alde egin nahi badu, **aldundiek** dituzten larrialdietarako etxebizitzaren batera edota ostatu batera eramango dute, emakumeak hurrengo egunak han pasatzeko. Berria - Harian

Ez dugu sekula onartuko **aldundiek** onartutako arauak Eusko Legebiltzarrekoekin berdintzea. Berria - Euskal Herria

Ekarpen Legeak ezarritako prozedura jarraituz, bildutako diru guztiaren %70,44 kutxa komunera bideratu beharko dute **aldundiek**. Berria - Ekonomia

Boz horien ondoren, **"aldundiek** eta udalek duten normaltasuna izango baitu Legebiltzarrak ere". Berria - Euskal Herria

Ordua da udalek, **aldundiek**, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak beharrezko bitarteko material eta humanoak jartzeko. Berria - Euskal Herria

Lau euskal **aldundiek** erabateko eskumenak dituzte arlo horretan; estatuen eskumen berberak ditugu. Berria - Euskal Herria

Ogasunek biltzen dituzten sosak gobernuaren eta **aldundien** artean nola banatu finkatzen duen arau horrek ez du ia aldaketarik izan 1985ean lehen aldiz martxan jarri zenetik. Berria - Ekonomia

Aldundien arteko akordioa sustatzeko inbertsio plan berezi bat eskaini zuen Eusko Jaurlaritzak duela bost urte. Berria - Ekonomia

2 *foru aldundi*

Ioldiren ondoren izango ziren beste preso batzuk, Nafarroako Parlamenturako foru legebiltzarrerako, foru **aldundietarako**, udaletxeetarako hautatuak. Jokin Urain

Foru **Aldundiek** eta Nafarroako Gobernuak zerbitzu hori erabili ahal izateko prezio publikoak ezarriak dituzte. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako herri zonbaitentzat, Hernani, Pasaia eta Usurbil kasu hortan dira besteak beste, auzapezaren hautatzea ez da herrian berean egin bainan Donostian, **Foru-Aldundiaren** biltzargunean, eta hori gataska zerbaiten beldurrez. Herria

-Hik ez al dun **foru-aldundian** lan egiten? Migel Angel Mintegi

Bizkaiko "herri desberdinetan" hasi behar omen dik **Foru Aldundiak** ez zakiat zer kanpaina. Iñigo Aranbarri

Euskaltzainditik kanpo idazle eta ikertzaile asko daude, oso prestatuak eta oso prestuak; euskara jagoteko gobernu oso bat dugu, eta **Foru Aldundiak**, besteak beste, ametsetan ere ikusten ez ziren baliabideekin gainera. Pello Salaburu

Emakume errefuxiatuen kooperatiba batek egindako xaboiak Hego Kivurreko herritarren artean banatu behar genituen, Gasteizko Udalak eta Arabako **Foru Aldundiak** diruz lagundutako proiektu baten baitan. Berria - Mundua

Iparraldeko turismo zerbitzuaren bitartez Gipuzkoako **foru-aldundi** edo diputazioak gomitaturik. Herria

1998an Bizkaiko **Foru Aldundiak** adierazpen instituzional bat onartu zuen, eta bertan proposatzen zuen ingurumen osasungarri baterako eskubidea giza eskubidetzat hartzea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gipuzkoako **Foru Aldundiko** arduradunek aditzera eman dutenez, Oindolar tunela A-15 autobidean dago, Villabona parean itxi egingo dute Donostiako norabidean. Berria - Euskal Herria

Foru Aldundiko teknikariei Karmeloko eraikinera sartzen uzteko eskatu zien solaskide izan zituen gazteei. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako Foru **Aldundiko** bozeramailea Jose Ramon Beloki izango da Kongresurako zerrendaburua oraingoan. Berria - Euskal Herria

Handik laster, liburua inprimategira bidaltzekotan ginela, Gipuzkoako **Foru Aldundiko** Ingurumenerako Zuzendaritzak jakin arazi zigun gipuzkoarrok Autonomia Elkartearen batez bestekotik gorako aztarna ekologikoa sortzen dugula: 5,3 hektarea biztanleko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Herritarrez gain, ertzainak, udaltzainak eta Bizkaiko **Foru Aldundiko** basozainak ere aritu ziren lanean. Berria - Euskal Herria

3 *probintziako aldundi* *(corpusean ez dago; ETCn 26 agerraldi)*

Probintziako aldundiak Espainiako probintzia gehienek dituzten gobernurako eta administraziorako erakundeak dira. ETC-entziklopedia

Diputatua edo ahalduna herriak **Probintziako Aldundirako**, Batzar Nagusietarako, edo Legebiltzarrerako hautetsitako ordezkaria da. ETC-entziklopedia

Gainera, sailkapen honekin batera, beste zerga lokal batzuk existitzen dira herri horretako udalak, **probintziako aldundiak** (Ibilgetu materialen zergak, jarduera ekonomikoagatik zergak eta ibilgailu mekanikoen zergak) eta Autonomia Erkidegoak exijitzen dituztenak. ETC-entziklopedia

Aguraingo udal-bihitegiak ez zion bere jardueren inguruko informaziorik inori bidaltzen, ez **probintziako aldundiari** ez koroari, eta ondorioz ez zuen zergarik ordaintzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldundi eta (3); **aldundia ere** (3); **aldundia eta** (18); **aldundia eta eusko** (3); **aldundia eta gasteizko** (4); **aldundiak a** (3); **aldundiak antolatutako** (3); **aldundiak atzo** (6); **aldundiak azken** (5); **aldundiak berak** (12); **aldundiak bere** (3); **aldundiak beste** (3); **aldundiak bi** (3); **aldundiak bigarren** (5); **aldundiak bigarren errauste** (5); **aldundiak diru** (3); **aldundiak diruz** (3); **aldundiak duela** (4); **aldundiak egin** (6); **aldundiak egin nahi** (5); **aldundiak egindako** (4); **aldundiak eginiko** (7); **aldundiak eman** (3); **aldundiak emaniko** (3); **aldundiak ere** (9); **aldundiak erredakzioa** (3); **aldundiak eta** (80); **aldundiak eta bilboko** (5); **aldundiak eta donostiako** (16); **aldundiak eta eusko** (9); **aldundiak eta gasteizko** (4); **aldundiak eta mankomunitateek** (3); **aldundiak eta pasaiako** (3); **aldundiak eta udalak** (3); **aldundiak ez** (21); **aldundiak ez du** (14); **aldundiak ezin** (3); **aldundiak ezin du** (3); **aldundiak gipuzkoako** (5); **aldundiak hitzarmena** (3); **aldundiak hitzarmena sinatu** (3); **aldundiak iragarri** (3); **aldundiak jakinarazi** (4); **aldundiak san** (3); **aldundiak sustatutako** (3); **aldundiak uste** (3); **aldundiak uste du** (3); **aldundiz aldundi** (3); **arabako aldundia** (10); **arabako aldundia eta** (3); **arabako aldundiak** (25); **arabako aldundiak eta** (5); **arabako foru aldundia** (9); **arabako foru aldundiak** (68); **bizkaiko aldundiak** (29); **bizkaiko aldundiak eta** (4); **bizkaiko foru aldundia** (11); **bizkaiko foru aldundiak** (74); **da aldundia** (4); **da bizkaiko aldundiak** (3); **dio aldundiak** (4); **dio gipuzkoako aldundiak** (3); **ditu aldundiak** (12); **du aldundiak** (17); **du bizkaiko aldundiak** (3); **du foru aldundiak** (3); **eta aldundi** (4); **eta aldundia** (4); **eta aldundiak** (13); **eta aldundiz aldundi** (3); **eta bizkaiko aldundiak** (4); **eta foru aldundiak** (16); **foru aldundi** (4); **foru aldundia** (58); **foru aldundia eta** (10); **foru aldundiak** (477); **foru aldundiak a** (3); **foru aldundiak antolatutako** (3); **foru aldundiak atzo** (6); **foru aldundiak azken** (4); **foru aldundiak berak** (9); **foru aldundiak beste** (3); **foru aldundiak bigarren** (5); **foru aldundiak diru** (3); **foru aldundiak diruz** (3); **foru aldundiak egin** (5); **foru aldundiak egindako** (3); **foru aldundiak eginiko** (5); **foru aldundiak ere** (9); **foru aldundiak erredakzioa** (3); **foru aldundiak eta** (65); **foru aldundiak ez** (12); **foru aldundiak gipuzkoako** (4); **foru aldundiak jakinarazi** (3); **foru aldundiak sustatutako** (3); **gipuzkoako aldundia** (7); **gipuzkoako foru aldundia** (24); **udal eta aldundi** (3)

aldundian eta (9); **aldundian eta gasteizko** (5); **aldundiarekin eta** (8); **aldundiaren arabera** (3); **aldundiaren ardurapean** (3); **aldundiaren arteko** (3); **aldundiaren asmoak** (3); **aldundiaren aurrean** (12); **aldundiaren aurrean amaituko** (3); **aldundiaren diru** (6); **aldundiaren egoitza** (3); **aldundiaren eraikin** (3); **aldundiaren esku** (8); **aldundiaren esku utzi** (3); **aldundiaren eskutik** (3); **aldundiaren eta** (19); **aldundiaren eta eusko** (4); **aldundiaren giza** (5); **aldundiaren jarrera** (5); **aldundiaren jarrera salatu** (4); **aldundiaren laguntzarekin** (7); **aldundiaren ustez** (3); **aldundiari ere** (4); **aldundiari eskatu** (5); **aldundiari eta** (9); **aldundiek eta** (20); **aldundiek eta eusko** (3); **aldundiek eta udalek** (10); **aldundien eskumen** (3); **aldundien eskumen** (3); **aldundien eta** (7); **aldundien eta** (7); **aldundiz aldundi** (3); **arabako aldundiaren** (8); **arabako aldundiari** (3); **arabako foru aldundian** (5); **arabako foru aldundiarekin** (5); **arabako foru aldundiaren** (9); **arabako foru aldundiari** (8); **bizkaiko aldundian** (3); **bizkaiko aldundiaren** (6); **bizkaiko aldundiari** (6); **bizkaiko foru aldundian** (7); **bizkaiko foru aldundiarekin** (6); **bizkaiko foru aldundiaren** (27); **bizkaiko foru aldundiari** (9); **da aldundiaren** (3); **dute foru aldundiaren** (3); **eta aldundiaren** (9); **eta aldundiaren arteko** (3); **eta aldundiari** (3); **eta aldundiek** (3); **eta aldundien** (3); **eta aldundien** (3); **eta aldundiz** (3); **eta aldundiz aldundi** (3); **eta foru aldundiaren** (8); **eta foru aldundiek** (6); **eta foru aldundien** (4); **eta foru aldundien** (4); **eta gipuzkoako aldundiek** (5); **foru aldundian** (37); **foru aldundian eta** (6); **foru aldundiarekin** (20); **foru aldundiarekin eta** (8); **foru aldundiaren** (146); **foru aldundiaren ardurapean** (3); **foru**

aldundiaren asmoak (3); **foru aldundiaren aurrean** (11); **foru aldundiaren diru** (5); **foru aldundiaren egoitza** (3); **foru aldundiaren eraikin** (3); **foru aldundiaren esku** (5); **foru aldundiaren eskutik** (3); **foru aldundiaren eta** (15); **foru aldundiaren giza** (5); **foru aldundiaren jarrera** (4); **foru aldundiaren laguntzarekin** (6); **foru aldundiarena** (4); **foru aldundiari** (52); **foru aldundiari ere** (4); **foru aldundiari eta** (3); **foru aldundiei** (9); **foru aldundiek** (32); **foru aldundiek eta** (12); **foru aldundiekin** (4); **foru aldundien** (12); **foru aldundien** (12); **foru aldundien eta** (4); **foru aldundien eta** (4); **foru aldunditik** (7); **gipuzkoako aldundiak** (24); **gipuzkoako aldundiak eta** (4); **gipuzkoako aldundiaren** (6); **gipuzkoako aldundiek** (5); **gipuzkoako foru aldundiak** (214); **gipuzkoako foru aldundian** (15); **gipuzkoako foru aldundiarekin** (5); **gipuzkoako foru aldundiaren** (64); **gipuzkoako foru aldundiari** (20); **gipuzkoako foru aldundiek** (9); **hiru aldundiek** (5); **udal eta aldundiz** (3); **udalaren eta aldundiaren** (3); **zuen aldundiak** (4); **zuen foru aldundiak** (3)

---

ale[1] **1** iz *(ETCn **20.324** agerraldi)* iz gariaren eta kideko edo antzeko landareen hazia; hainbat gauzaren zati xehe biribil antzekoa; liburu, aldizkari edo kidekoen kopia bakoitza.

Urteetan Berlinen bizi izan zen filosofoa zen, eta hebrear entziklopedia bat argitaratzen zuen, aurreneko **aleak** Lehen Mundu gerraren aurretik azaldu zirenak. Koro Navarro

Gogoan zeukan nola baztertu zuen bixarra puntara iristeko, azazkala gutxi-gutxi sartuta, **ale** bakar bat ere ez harramazkatzeko. Anton Garikano

Ez da **alerik** egoten ia eta egoten diren apurrak ahulak eta txikiak izaten dira, amuan jartzeko gorputzik ere ez daukatenak. Hasier Etxeberria

Ale bat erosi nian, sinadura, eskaintza eta guzti. Iban Zaldua

Salgai dauzkat, aldean ditut Tableau de l'Inconstance liburu gogoangarriaren bost **ale**, azkenekoak dira, azkeneko bost aleak... Anjel Lertxundi

Tartean tartekoak, aldi hartatik bost edo sei **ale** baino ez dira heldu liburu honetaraino. Pablo Sastre

Egia da denboraren galbaheak ez duela sarritan guk nahi genukeen bezain zehatz irazten: **aleak**, hondarra, hautsak, oinazeak igaro egiten dira galbahearen saretik behera... Anjel Lertxundi

Berriro lokartu eta bigarren amets bat izan zuen: Zazpi galburu sortu omen ziren gerri batetik, mardulak eta **alez** beteak. Jose Antonio Mujika

"Arreba nagusi! ", deitzen zidan Uilek, nire bila balebil bezala, eta haren ahotsa airean geratzen zen, hauts pila batetik igotako **ale** bat bezala. Juan Kruz Igerabide

Inork ez du inoiz dauzkan **aleetatik** bakarren bat txarra dela esateko lanik hartzen, daukan guztia txarra delako. Ramon Etxezarreta

Argitaratzeaz ere berekasa dabil, aldikal **ale** bakar batzuk baino ez ditu inprimarazten. Jose Angel Irigaray

Badirudi, izan ere, denbora "pikortu" ahal izango balitz bezala gertatzen dela narraziozko zineman, denbora gertaeren inguruan **aleetan** trinkotu ahal izango balitz bezala, eta are errazago, gainera, gertaera hori fikziozkoa bada. Josu Zabaleta

Liburua kaleratzen denean **ale** bat eskatuko duzula espero dut. Antton Olano

Egungo autopista-gune garrantzitsu baten inguruan geratu delarik, parke zoologikoak berak iragan denboretako animalia espezie desagertu bateko **alea** dirudi. Edorta Jimenez

Pikortak izanak zituen aurpegian, baina ez zuen jadanik **alerik**, bat izan ezik, kokots azpian, eta huraxe igurzten zuen Jonathanek kezkabideren bat zuenean. Jon Muñoz

Hizkuntza, gizataldean, burmuin bakoitzean ezarririko arrasto multzo baten gisa dago ezarria, gutxi gorabehera hiztegi bat bezala, horren **ale** guztiak, denak berdinak, gizabanakoen artean banatuak bailiran (ik. 40. orr.). Isabel Arrigain

Ez zitzaidan erraza suertatu azken nobela horren **alerik** topatzea: Madrileko Biblioteka Nazionalera jo behar izan nuen eskuratzeko. Iban Zaldua

Liburu horren **aleak** milaka saldu dira, eta arrakasta horri esker orain ni neu oso egoera oparoan bizi naz diru aldetik. Jon Arretxe

Mila **ale**, besterik ez, gehienetan. Hasier Etxeberria

Gela urdinean egoten naiz ikastolako lanak egiten eta zure liburutegiko **aleak** gainbegiratzen. Koldo Izagirre

Autobuseko lazeria ibiltarian beste kartzela batera aldatzen zaituzten bakoitzean presoaren ikasbideari lotzen zatzaizkio ostera, errotarri paratu berria bazina bezala, kendutako denboraren **aleak** moldekaizki xehatzen. Jokin Urain

Ale horretan, herri bakoitzean fusilatutakoen datuak agertzen dituk eta nik banekian, gure aitonak hala esaten duelako, Usurbil aldekoak zirela lau fusilatuak. Xabier Etxabe

Atalkako eleberri, izø Literatur lan mota bat, maiz gezurrezko istorioa, egunkari edo aldizkari baten **aleetan** arrastaka ibili ohi dena. Xabier Olarra

Eskuetan Voici Paris eta Nous Aussi agerkarien **ale** batzuk zeuzkala azaldu zen, eta Yvanen eta bion argazkiak, lehen planoan eginak guztiak, pantailaratu zituzten. Joxan Elosegi

Irudipena zeneukan, eztarritik kendu berri zizuten minbiziaren **alea** zakarrontzira bota zuela Aldaba doktoreak. Hasier Etxeberria

Gari-zaku baten azpiari zuloa egindakoan **alea** nola, halaxe etortzen zitzaizkidan horrelako pentsamendu eta galderak. Anjel Lertxundi

Aaron Silbermanen semea Berlindik itzuli berria da eta **ale** bategatik salbatu zela entzun dut. Ramon Etxezarreta

Yonsuk andrearen senarrak entzuna zuen eguzki lorearen **aleak** onak zirela emaztearen gaitzaren kontra, eta landareak erosi zituen. Juan Kruz Igerabide

Berandu; hartu egin zuen sagarra Leirek, dozena bat **ale** lurrera joan ziren; ingurukoak barrezka, errebueloa izan zen. Pablo Sastre

-Argazkia ikusi nahi baduzu, bilatuko dizut argitaratu genueneko **alea**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez duzu beste **alerik**? Anton Garikano

Begira geratu zitzaidan, ea **ale** bat nahi nuen. Lander Garro

Eskuartean ibili izan dudan bihitegiko **alea**, zein bestela? Pello Zabala

Adi egoteko moduko **alea** da, Dianne. Fernando Morillo

Alabaina, Gabilondo hil zenean, eta Aranzadiren kritikak gorabehera, Euskal--Erria aldizkariak **ale** monografiko oso bat eskaini zion, laudorio sutsuak eginez, Donostia zaharreko pertsonaia benetakoena izan zelakoan. Askoren artean

Petalo zuriak hil eta menda-koloreko **alea** agertzen zenerako, urre argizarizkoa zen hostoaren distira. Anton Garikano

Londreseko urtxintxak grisak dira, gure basoetakoak gorriak; apenas ikusten den **alerik**, ordea. Ramon Saizarbitoria

Lehendabiziko hiru **aleak**, batez ere, presokratikoei eta sofistei buruzkoak. Askoren artean

Alabaina, Durangoko azokan **ale** hau saldu zizunean, saltokiko gazte betaurrekodunak gaztigatu zizun bihotzekoak emango zizula liburu hau irakurtzean, oker ez banago. Javi Cillero

Norbaitek agindu zuen, Mehaine gaztearen heriotzaren ordain, **alerik** ere bizirik ez uzteko. Aingeru Epaltza

Harrigarriena, dena dela, arkitektura modernoaren azken **aleek** baino aho zabalago utzi ninduena, Margarengan deskubritzen hasi nintzena. Xabier Montoia

Ez dut Inezekin harreman gehiago izan, ezta agindutako hamabost **aleak** sekula iritsi ez zitzaizkidala esateko ere. Harkaitz Cano

Orain dagoen postuan astean behin argitara dezake liburu bat, argitaratzen diren liburu guztien **ale** bana baitago Liburutegi Nazional horretan gordailuan. Joxerra Garzia

-Hiru **aleak** izenpeturik ekarri otoi, datorren asteleheneko berantenez, behar diren dokumentuez horniturik. Itxaro Borda

luzatu eta norabide guztietatik **aleak** ekarriz mendatetxo bat egin arte. Lander Garro

Ezin zara gogoratu azken **alea** atera zeneko urteaz. Lourdes Oñederra

Marguerite Yourcenarren Opus nigrum utzi zion, baina Ekaitzek ez zuen astirik izan liburua itzultzeko: gurasoen etxean dago oraindik, bere gelako apalategian; García Lorcaren eta Sarrionandiaren **aleen** artean. Iban Zaldua

2 (izenondoekin)

Berrogeita hamar emakume zerbitzari zebiltzan, batzuk **ale** gorria ehotzen, besteak lihoa ehuntzen, liho-olioa tantoka zutela. Juan Kruz Igerabide

Arratsean, Abel, Eugène dohakabea eta hirurok, amaren inguruan bilduta, koloretako kutxa baten kikarak xikinduz saiatzen ginen Mila eta bat Gau-ren **ale** zahar baten grabatuak nork ankerrago margotzen. Koldo Izagirre

The Economist astekariak enpresa multinazionalei eskainitako **ale** berezi batean azpimarratzen zuen bezala [...]. Koro Navarro

Han, zeure eztarriko zuloan, aitzurrak eta palak erabiliak zituzten kartzinoma **ale** zikina kentzeko. Hasier Etxeberria

Etxola ere xaharra zuen, baina atarian oso **ale** ederrak ematen zituen laranja arbola bat zeukan. Patxi Zubizarreta

Sutearen ondoan belaunikatu nintzen, Ouest France egunkariaren **ale** zahar trebeki purtzilikatu batzuk tximinian ezartzeko, haien gainean abartxoak arraposki pausatzen

nituela. Itxaro Borda

Hogei minutuan hiru **ale** eskas pasa dira: zaborraren kamioia eta bofiaren patrol bi ziztu bizian aldapan gora. Patxi Iturritegi

Medikuak hainbatgarrenez pasa du eskua ile **ale** distiratsuetan. Koldo Izagirre

Ikusita nago ni portuan **ale** itzel askoak, kristoren zuhaitz puskak, zera. Jon Muñoz

Xehetasunik adierazgarriena zen, emakumearen edertasun malenkoniatsuaz aparte, granadari azal zati bat falta zitzaiola, eta, beraz, barruko **ale** gorrixkak agerian zituenez, errai odoltsu bat zirudiela. Ramon Saizarbitoria

Ilarren itxura daukaten **ale** biribiltxoak dira, goxoak, irinez eta azukrez eginak. Gotzon Garate

Milia Lasturkoaren kantuaren edertasuna aipatu dut saioaren hasieran, eta badira horrelako beste **ale** polit batzuk euskalki honetan idatziak. Koldo Zuazo

Bai **ale** bikaina aker zahar hau, hain adoretsua eta zintzoa, eta lasaia! Oskar Arana

Garrüzeko gazteluzainak sekula ez zuen galdegin bere mahaira ailegatzen ziren **ale** goxoen etorkiaz. Aingeru Epaltza

Nik dakidala, Harkaitz lehenbizikoa izan zen, Burlatako **ale** peto-petoa. Aingeru Epaltza

Eseri zen Rut igitarien ondoan, eta Boozek eskutada bat **ale** xigortu eskaini zion. Jose Antonio Mujika

Disimulu handiz mahai-gainean utzi nituen bi **ale** madarikatuok, oso-osorik; amonak hartu, mahaiaren kontra jo, txikitu, jan, eta beste atzaparkada bat hartu zuen ontzitik. Joxean Sagaztizabal

Fructuosok berak egingo omen gintuen libertario benetako, inoren aurrean ez lotsatzeko moduko **ale** bikain. Inazio Mujika Iraola

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Begira mihura xorta lotsati enigmatiko horiei, ixil ixila, heriotz itxura guziak gezur direla salatzen, han hemen, zuhaitz adar soilduen tartean harrigarri, beren hostaje horiberdaska eta **ale** pinporta xuritan. Patziku Perurena

Corto sconto izeneko liburu baten **ale**-meta handia dago sarreran, zutabe baten moduan paraturik. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Antoniok, poltsikotik gerezi **ale** parea atera zuen, txirikordaz loturiko gerezi bikiak. Jasone Osoro

Charlieren bila egin dut, baina indigaztaina jolasean dabil, gaztaina **aleak** krask eta krask, lagunekin; Morroskoak denak ere. Mirentxu Larrañaga

Ilunabarreko eguzki-printza bat sartu zen leiho irekitik, eta haren distira-ildoan hauts-**ale** urreztatuak zebiltzan dantzan, urrundutako musikaren zaldi hegaldariek ezerezera eta suntsipenera daraman zerurako bideko hautsa harrotu balute bezala. Xabier Olarra

Harea **alea** anpuluan behera bezain azkar galdu zen keinua izan zen arren, ordura arte ikusi ez nion beste su bat igarri nion begietan ene lagunari. Edorta Jimenez

Zerbitzariak edariak ekarri zituen eta platertxo batean arto-**ale** xigortuak. Fernando Rey

Automobilak airean zetozen Dublin aldera, Naas Roadeko gurtarrastoan berun-**aleak** bezala zuzen-zuzen labaintzen zirela. Irene Aldasoro

Azkenik, euren espezie barruan ere ikusiko duzu edozeintzuk labore-**ale** ez direla elkarren artean euren eiteetan alderen bat ez edukitzeko bezain berdinak. Xabier Amuriza

Bezperan ez bezala, hainbat emakume eta ume ari ziren lanean, eta, behi nagi **ale** batzuk izan ezik, inor gutxi zebilen kalean. Xabier Montoia

Gure artean gerra punikoak hedatzen ziren halako batzuetan, alde batekoak erromatarrak eta besteak Kartago defenditzen, eta klasean maniobra eta harrabots belikoak hasten zirenean paper bolak eta arroz **aleak** jaurtitzeko tutuluak ziren gure arma nagusiak. Joseba Sarrionandia

Zergatik eta granada **ale** eta piper batzuengatik... Patxi Zubizarreta

Hire idunekoaren haria trenkatua dun eta hire lepo inguruan barreiu zautzan urre **aleak**. Juan Garzia

Zeren deus gutxi da txingor-**ale** bat, baina mila txingor-alek ubelunez bete dezakete edonoren burua. Joan Mari Irigoien

Adin indefinituko dendari txinoa, Wang deituko da edo Li, oso gora altxaturiko eskuaz palatxoari eraginez, balantzaren platerean jadanik osatua duen azukre tontortxoaren gainera azukre jausi fin fina ari da botatzen, bi libra azukre **ale** baten gorabeherako zehaztasunez neurtzeko. Joseba Sarrionandia

Jimmyren loa adabegi gogorretatik esekirik zegoen, arrosario-**aleak** bailiran. Lopez de Arana

Nahiago nuke pikatxoi-burdinari hozka egin, hortzetan kraska egiten duen babarrun **ale** bat jan baino, eperraren hegatsean topatutako perdigoiak bezala. Itziar Otegi

Eskuak gorritzen zizkion mingrana **aleen** zukuak, eta aurpegia ere udazkeneko fruitu haien urarekin zipriztindurik zeukan. Juan Kruz Igerabide

Bazkaritarako, bospaseina garbantzu **ale** eta ogi tiki bat, hau egun guzirako. Jokin Urain

Luteziak, isilik zegoenean, ahoa neurriz gain txikia zuen, koral-**ale** obaloa iduri. Matías Múgica

5 ***ale batzuk***

Kanpoan gelditu diren **ale batzuk** aise kabi litezke antologiarik hertsienean ere, baina bildu direnen merezimendua, behintzat, nekez jar liteke auzitan. Juan Garzia

Euskaldunak nabarmentzen ziren, **ale batzuk** baizik ez izanagatik. Aingeru Epaltza

6 ***ale larri***

Badakit ez dituela bere burua hanpatzeko idatzi, gure egoera latzaren berri emateko baizik, eta ulertzen dut gatz pittin bat erantsi behar izana · **ale larrikoak** gustu hobea ematen du, badakizu- gure artean bizi izan zituen pasadizoei, albait publiko zabalenera iristeko asmoz. Koldo Izagirre

7 ***ale tipo*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Materialaren edo multzoaren benetako tamainako **ale tipo** bat hartu eta denbora/tenperatura kurba estandar baten araberako tenperaturetan ezarrita zehazten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina 2001ean, Bruce Latimer eta James Ohman ikerlariek, Turkana gazteak displasia eskeletikoa eta eskoliosisa zituela ondorioztatu zuten, hori dela eta Homo ergaster-aren **ale tipoa** ezin zitekeela izan proposatu zuten. ETC-entziklopedia

8 ***ale xehe***

Gaur egungo kalkuluen arabera, akrezioz sortua da, duela lau mila milioi urte, gure Lur hau: hauts kosmikoa **ale xehetan** bilduko zen, aleak legarretan, eta aurki harritxo bilakatu, gero harri gero eta koxkorrago, planeta txiki, eta, azkenean, horra hautsak llargiaren tamaina hartu eta gero Lurrarena. Juan Garzia

9 ***ale-xehekatu***

Niri, lehen egunean, zink sulfatoa prestatzea egokitu zitzaidan halabeharrez: ez zuen aparteko zaila izan behar; zera zen kontua, kalkulu estekiometriko elemental bat egin, eta zink **ale-xehekatuari** aurrez uretan disolbaturiko azido sulfurikoz erasotzea; kontzentratu, kristalizatu, ponpaz xukatu, garbitu eta birkristalizatzea. Juan Garzia

10 ***astamahats ale-beltz*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Astamahats ale-beltza ("Bryonia alba") Cucurbitaceae familiako mahatsondoa da, Europan eta iparraldeko Iranen jatorria duena. Brionina duenez, toxikoa da. Berrogei fruitu nahikoa da gizako heldu bat hiltzeko. ETC-entziklopedia

11 ***astamahats ale-gorri*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Astamahats ale-gorria ("Bryonia dioica") Kukurbitazeo Cucurbitaceae familiako mahatsondoa da, erdialdeko eta hegoaldeko Europan jatorria duena. Brionina duenez, toxikoa da eta horrexegatik sendabelar moduan ere erabili dute. ETC-entziklopedia

12 ***baratxuri ale***

Baratxuri aleak hartu zituen; xehatu; kikara bat perrexil-adarrez bete; perrexila moztu zuen, guraizeen hotsa entzuten zela, eta, azkenik, limoi-azalak birrindu zituen, urratu bat eginik hatz-muturrean. Jon Muñoz

13 ***beira ale***

Janzkera tradizionala eramaten dute: **beira alez** osatutako diadema, Indiako Ozeanoko maskorrez egindako lepokoa eta kolore biziko soinekoak. Berria - Kultura

Lorategiko amañi-lili eta otsagereziondo loretsuak patio osoa inguratzen zuten urki lirainetaraino iristen ziren, lore-uztai edo **beira-alezko** iduneko baten antzera, eta nonahi aditzen zen haien urrina. Jose Morales

14 ***gari ale***

Txori batek **gari** alea hartzen duen bezala. Felipe Juaristi

Garia, garagarra, ogi-irina, **gari** -ale xigortuak, babarruna, dilista. Elizen arteko biblia

Hamar asteme **gari** -alez, ogiz eta jakiz kargaturik. Elizen arteko biblia

15 ***gatz ale*** *(orobat **gatzale** g.er.)*

Hankamuka egin ditut urrats batzuk **gatz ale** zaharrak zanpatuz, mareaje luze baten ondoren lehorreratu banintz bezala. Koldo Izagirre

Beharrezko dira desadostasuna, desberdintasuna, **gatz alea** eta ziape garaua. Juan Garzia

Abandonatua zegoen txirla bat hondarrezko muino baten gainean bezala, bizitzak bazterrean utzia **gatzale** lehorrez bete zedin. Anton Garikano

16 ***hondar ale***

Eguzkiak han urre kolorea hartzen du, eta urak urrea ekartzen, **hondar** aleen artean nahastuta. Felipe Juaristi

Une horretan, Tomek bere **hondar** -alea erantsi zuen azkenean eztabaida hartara. Oskar Arana

Hondar-ale batzuk irradatu dizkiot garondo aldera, baina berak lo segi. Joxe Austin Arrieta

Une horretan, Tomek bere **hondar-alea** erantsi zuen azkenean eztabaida hartara. Oskar Arana

17 ***kafe ale***

Hobe duzu **kafe aleak** xehe-xehe egitea, morteiruz zanpatzea baino. Javi Cillero

Kafe aleak kontuz txigortu behar dira, su motelean, erre barik. Javi Cillero

Titi puntak, **kafe aleak** bezalakoxe beltzak larruaren zurian. Felipe Juaristi

Pertsiako arrozaren samurra; Arabiako **kafe-ale** lehorren kilikaria. Felipe Juaristi

18 ***mahats ale*** *(orobat **mahatsale** g.er.)* mahatsaren alea.

Loraldia igaro eta **mahats** -alea heltzen hastean. Elizen arteko biblia

Hostoen eta **mahats** -aleen gaineko hautsa. **Mahats ale** bat hartu eta jan du. Eskarne Mujika

Mahats -aleak jaten hasi zen, hura bakarrik jaten lotsa ez zedin. Askoren artean

Mahats -aleak janez eta etxeko ardo lodia edanez. Felipe Juaristi

Michael Levinson kanadarrak ahoan sartu ahal dituen **mahatsaleak** . Iñigo Aranbarri

Amorrazioaren gaztainak, hiraren **mahats** -aleak eta pesadunbrearen mahats-mordoak. Xabier Olarra

Txupa kenduta bular guriak nabari zaizkio, ez handiak ere, baina bai ongi biribilduak, dardara zaluxkoak, eta titiburuko **mahats aleak** gotor kamisetapean, bizirik baleuden. Pako Aristi

19 ***marrubi ale***

Orain **marrubi aleak** bereizten ari da. ezpainak busti-bustiak zeuzkan, **marrubi-ale** freskoak baino goxoagoak. Alberto Barandiaren

20 ***oliba-ale*** *(corpusean **olibale** soilik)*

Erein, bai, ereingo duzu, baina uztarik bildu ez; **olibalea** zapaldu, bai, baina zeure burua gantzutu ez; mahatsa zapaldu, bai, baina ardorik edan ez. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldizkariaren ale bat (5); **aldizkariaren hainbat ale** (3); **aldizkariko ale** (3); **ale argitaratu** (3); **ale asko** (3); **ale aterako** (3); **ale baino ez** (7); **ale baino gehiago** (4); **ale bakan batzuk** (4); **ale bakanak** (3); **ale bakar bat** (5); **ale bakar bati** (3); **ale bakarra** (9); **ale bakarraren** (4); **ale bakarreko** (3); **ale bakoitza** (6); **ale bakoitzeko** (3); **ale banatu** (8); **ale banatuko dituzte** (3); **ale banatzea** (3); **ale bat eman** (3); **ale bat ere** (5); **ale bat hartu** (3); **ale bat zen** (4); **ale batean** (4); **ale batek** (3); **ale baten** (7); **ale batzuk** (34); **ale berezi** (5); **ale berezia** (9); **ale berria** (5); **ale berriak** (5); **ale besterik ez** (3); **ale bide bazterrean** (3); **ale dira** (4); **ale eder bat** (3); **ale ederrak** (7); **ale europako** (3); **ale gorria** (3); **ale gorrizko** (3); **ale guztiak** (8); **ale haiek** (4); **ale hau** (5); **ale hauek** (3); **ale honek** (7); **ale honetan** (4); **ale horrek** (4); **ale horren** (3); **ale inguru saldu** (3); **ale jarri ditu** (3); **ale mardul** (3); **ale monografikoa** (3); **ale pare** (3); **ale politak** (4); **ale saldu dira** (6); **ale saldu ditu** (3); **ale saltzea** (4); **ale saltzen** (6); **ale sasi artean** (3); **ale xigortuak** (3); **ale zabaltzen** (3); **ale zahar** (6); **ale zaharrak** (3); **alerik ale** (4); **alez ale** (4); **argitaraldiko ale bat** (3); **babarrun ale bat** (8); **baino ale gehiago** (3); **beste ale bat** (4); **beste zenbait ale** (3); **bi ale** (14); **bost ale** (4); **diren ale** (3); **ditu ale** (3); **du ale** (3); **edizioaren ale** (3); **egunkari ale** (3); **egunkariaren ale bat** (5); **ehun ale** (3); **en ale** (5); **fruitu ale** (3); **gari ale** (6); **ginger ale** (4); **giza ale** (4); **guztien ale bana** (4); **harea ale** (5); **hauts ale** (4); **hiru ale** (7); **hondar ale bakar** (3); **ilar ale** (3); **kafe ale** (3); **ko ale** (3); **kopia guztien ale** (3); **lau ale** (3); **liburuaren ale bat** (8); **mahats ale** (8); **mila ale** (15); **milaka ale** (5); **milioi ale** (5); **milioi bat ale** (3); **milioika ale saldu** (3); **oso ale gutxi** (3); **ren ale bat** (5); **sagar ale** (3); **sei ale** (3); **zen ale** (4); **zenbait ale bide** (3); **zenbait ale sasi** (3); **zenbat ale** (5)

aldizkariaren azken alea (3); **alea atera** (4); **alea ere** (3); **alea hartu** (4); **alea izango** (3); **alea jacta est** (8); **alea plazaratu** (3); **azken alea da** (3); **azkeneko alea** (3); **babarrun alea** (3); **bateko lehen alea** (3); **baten azken alea** (3); **bere alea** (6); **bere hondar alea** (3); **bigarren alea** (6); **egunkariaren lehen alea** (3); **gari alea** (3); **hamargarren alea** (5); **hirugarren alea** (4); **laugarren alea** (3); **lehen alea da** (3); **lehen alea kaleratu** (3); **lehenengo alea** (3); **ren alea** (3)

aldizkariaren aleak (4); **aleak bezala** (6); **arroz aleak** (3); **azken aleak** (4); **bi aleak** (3); **gari aleak** (3); **hondar aleak** (10); **kafe aleak** (6); **mahats aleak** (11)

aldizkariaren azken alean (11); **alean argitara** (3); **alean argitaratu** (4); **alean eman dute** (6); **alean erredakzioa** (4); **alean kaleratu** (4); **azken alean eman** (6); **bere azken alean** (4); **egunkariak atzoko alean** (4); **lehen alean** (3); **ren hurrengo alean** (3); **zuen atzoko alean** (3)

alearekin batera (4)

mahats aleen (3)

aleko tirada egin (3); **mila aleko tirada** (4)

aleren bat (6); **aleren baten bila** (3)

alerik ale (4); **alerik ere ez** (12); **alerik ez** (7); **alerik gabe** (3); **alerik galdu** (3); **alerik onenak** (5); **ez da alerik** (3); **ez zen alerik** (3)

aletan atera (3); **aletan banatua da** (3)

aletik gora saldu (4)

aletxo bat (3)

alez ale (4); **alez beterik** (4); **beira alez** (3); **gari alez** (3)

---

ale[2] zina, arnegua, desira edo harridura adierazteko erabiltzen den hitza. ik **ala 4**.

Ene! Zoragarria zara! **Ale** , segi nire heziketarekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ale ! Sonia Gonzalez

Asteburu txar bat pasa, eta gero... **ale** !, bizitza osoa aberats pasatzera. Aitor Arana

Ez dituk perretxikoak bezala lortzen, mendira joan eta **ale** , han edo hemen azalduko da bat! Zoratu egin al haiz? Fernando Morillo

-Ale , etorri, ez duzu nahi bainuontzi polit honetan bainatu? Juan Martin Elexpuru

-Ale , zoazte gustian, eta hi -amak besoetan tinkatzen du mutikoa- habil, laketuko hiz gain hartan [...] Michel Oronoz

[...] hura kantari eta beste guztiok txaloka eta txistuka, barrezka eta oihuka, berealdiko iskanbila sortuz, harik eta azkenean Txutxo etorri eta denak ohera bidali gintuen arte: " **Ale** , ohera". Xabier Mendiguren Elizegi

---

aleatorio *(ETCn **683** agerraldi)* **1** *izond* zoriaren mende dagoena. ik **ausazko**.

Aleatorioa izan ohi da, ordea, tradizioak emandako emaitzen iraupena; aldabera eta haizeen abarora biltzen dena. Anjel Lertxundi

Aukeraketa hori edo kokatze hori **aleatorioa** da edo badaude irizpide jakin batzuk? Ana Urkiza

Justiziaren jokabidea **aleatorioa** da kasu honetan. Berria - Euskal Herria

Lanaren nazioarteko banaketa -zentroko eta periferiako eremuen artekoa-, ez da mundu osoko baliabide naturalen edo hornigai-baliabideen banaketa **aleatorio** baten emaitza hutsa; izan ere, hornigaiguneen eta merkaturatzearen kontrolak eta zentroaren periferiako ekoizpenen gainekoak badute eraginik banaketan. Koro Navarro

Batzuetan estatistikoek darabiltzaten zenbakien taula **aleatorioa** zenbaki-sinboloen sail bat da, zeintzuk ez diren lotzen elkarren artean inolako egitura sintaktikoren bidez. Xabier Arregi

Malkielek aipatu tesia *A Random Walk Down Wall Street* (Ibilaldi **aleatorio** bat Wall Street-en barrena) liburu ospetsuan jaso zuen. Iñaki Heras

2 *aldagai aleatorio* *(corpusean ez dago; ETCn **187** agerraldi)*

Probabilitate teorian eta estatistikan, zorizko aldagaiak (ausazko aldagaia, **aldagai aleatorioa** edo aldagai estokastikoa) zorizko saiakuntza bateko balizko emaitzetatik eratortzen diren zenbakizko balioak biltzen ditu, hau da, zorizko balioak hartzen dituen aldagai bat da. ETC-entziklopedia

Bariantza **aldagai aleatorio** baten probabilitate-banaketaren bigarren graduko une zentrala da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldagai aleatorio kuantitatiboak diskretuak edo jarraituak izan daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mixed generalized linear models deitutako estatistika-eragiketen bidez, hiztuna bezalako **aldagai aleatorioak** (random variables) gainerako aldagai finko deiturikoekin (fixed variables) batera azter daitezke, hau da, adin, genero, eta abarrekin batera. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *musika aleatorio* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Musika aleatorioa: musika egiterakoan edo jotzerakoan ezusteko edo prestatu gabeko elementuak sartzen dituena, eta zorizko prozeduren bidez (estatistikoak edo konputagailu bidezkoak) ontzen dena. ETC-entziklopedia

---

aleatorioki *adlag* era aleatorioan.

Ikusleak film burutua du bere esku, eta egiaz ez du plano jakin bat egin duen kamerak nola jokatu duen jakiteko inolako biderik; mugimendu hori nolakoa izan den aski **aleatorioki** pentsatzera mugaturik dago, beraz; baina ia ezin du eragotzi nahi gabe ere mugimendu hori berregitea, koadroak eremuari buruz egiten duen mugimendua ia automatiko lotzen baita ikusmenezko irudimenezko piramide batekin. Josu Zabaleta

---

aleatoriotasun *iz* aleatorioa denaren nolakotasuna.

Gertaera bateko une bat irudikatu nahia utopia da, beraz, gehienbat, azken-azkenean: **aleatoriotasunaren** bila egindako irudi batzuetan salbu (aldi bitarte jakinetan automatikoki egindako argazkiak, adibidez), gainerako guztietan adierazi nahi den zentzu baten arabera aukeratzen da une hori: argazkiaren sorkuntzari dagokion gaia da. Josu Zabaleta

Maletatik orriak atera, eta trantsitutik zehar barreiatu ditu, zaratarik atera gabe, **aleatoriotasun** efektu bat lortuz, presaz egindako ekintza bailitzan. Iban Zaldua

---

aleazio *(ETCn **1.918** agerraldi)* **1** *iz* bi metal edo gehiago urtzetik sortzen den gaia.

Konparatu ohi da urre finarekin, urre garbiarekin, inolako **aleaziorik** ez duenarekin. Joan Mari Lekuona

Erraza zen dignostikoa: ferro-zerioa zen, pizgailuen harritxo arruntak eginak diren **aleazioa**. Juan Garzia

Berrikiago, altzairuzko **aleazioz** eta zenbait gai plastikoz egin dira bolaren zein ahokaduraren protesiak. Irene Aldasoro

Karakalaren txanponak [...] erdia baino gehiago zeukan **aleazioa**; Alexandro Severorenak [...] bi herenak; txanpona ahulagotuz joan zen, eta Galianoren garaian [...] kobre zilarreztatua besterik ez zen ikusten. Iñaki Iñurrieta

Oraingoak baino askoz birringailu zorrotzagoak baliatuko dira (**aleazio** berriak baliatuz) gazta, intxaur muskatu, zitrikoen azal... eta era guztietako elikagai izoztuak xehatzeko. Edorta Agirre

2 irud/hed

Izan ere, beharrezkoa da **aleaziorik** sendoenezko nerbioekin munduratua izatea, edo, nerbioak dardartsu eta zapartatsuak baldin badira, neurriz kanpoko pasio batek, aberriaren aldekoak edo antzekoak, inor beretua izatea Jon Alonso

3 *aleazio-altzairu* *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Bizikleta-kate gehienak **aleazio-altzairuz** eginda daude, baina badira nikelatutako modeloak, oxidazioa eragozteko edo arrazoi estetikoengatik egiten direnak. ETC-entziklopedia

Soldadurarik gabeko hodiak, **aleazio altzairuzkoak** eta karbonozkoak egiten dituzte Amurrioko plantan. ETC-prentsa

Hotzean eta beroan xaflatutako **aleazio altzairuzko** barra ugerrezinak egiteko unitatea, IG ikerketa eta garapen zentroa, eta bulegoak. ETC-prentsa

Hotzean eta beroan xaflatutako **aleazio altzairuzko** barra ugerrezinak egiteko unitatea, IG ikerketa eta garapen zentroa, eta bulegoak. ETC-prentsa

Aleazio-altzairu batek duen trakziopeko tentsio-deformazio portaera. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

alebin *(ETCn **515** agerraldi)* *iz* benjaminen hurrengo mailako kirolaria.

Lau mailatan banatuta arituko dira: benjamin, **alebin**, infantil eta kadeteak. Berria - Kirola

Proba konbinatuan eta sokatiran ariko dira **alebin**, haur eta kadete mailetan parte hartuko duten zortzi taldeak. Berria - Kirola

Kirol guztiak homogeneizatu nahi dituztenez, benjaminek eta **alebinek** ezin dute lehiaketetan parte hartu. Berria - Kirola

Herriartekoaren finalean Iruñea Lizarrari nagusitu zitzaion, Iruñeko taldeak **alebinetan**, jubeniletan eta nagusietan irabazi zuen. Berria - Kirola

Proba konbinatuan, Berriozarrek irabazi zuen **Alebin** Mailan, Aritza A taldeak Haur Mailan Iñigo eta Eunate taldeak Kadete Mailan. Berria - Kirola

Proba konbinatuak bost kirol hartzen ditu: koskoak, txinga eroatea, zaku lasterketa, korrika eta arpana; **alebinak** ez dira ariko arpanean. Berria - Kirola

---

alebosia *iz* maltzurkeria, azpikeria. ik **saldukeria**, **traizoa**.

Alebosia osoz eginda zirudien medietako zulotxotik azalak eztanda egiten zion, eta haragi tinko eta boteretsuaren berri ematen zigun ni bezalako voyeur zorigaiztokoei. Eider Rodriguez

---

aleen *izond* hitz bat gutxiesgarritzat markatzeko izenondoa.

Atsotitz batek airoso bildu digu astea: Astelehena, atso **aleena**; asteartea, atso sardea; asteazkena, atso lerdena; osteguna, atso leguna; ostirala, atso argala; larunbata, atso olata; igandea, atso andea. Pello Zabala

Hor dago lehengusu kaiku handi hori; beste hori Gavard zikoitz **aleena** da, eta hori konkorduna, eta horra Clémence neska txilibitu hori. Karlos Zabala

---

alegal *(ETCn **124** agerraldi)* *izond* inongo legek babesten ez duena.

Alegala da, hori bai, baina ez ilegala. Berria - Harian

Legebiltzarrean onartzen den diru laguntza, **"alegala"**. Berria - Harian

Espainiako Gobernuaren jokabidea **"alegala** eta arbitrarioa" dela uste du, "ez baita oinarritzen alde biko akordio batean edo araudi batean". Berria - Ekonomia

Jende olde hori auzitegiek geldiarazi zuten, horrek egoera **alegal** batean utzi zituelako jada ezkonduak ziren bikote guztiak. Berria - Gaiak

Gu **alegal** sortu ginen, baina aliatuak izan genituen beti. Berria - Harian

---

alegato **1** *iz* epaiketetan, abokatuak, berak defendatzen duen pertsonaren alde eta aurkariren kontra erabiltzen duen arrazoibidea. ik **alegatu 2**.

Hilkutxa hotz baten antzera utzi gintuzten gure akusatuaren frikunkeria gehiago ezagutu ahal izan genuen, baina iraganeko kontu horien beharrik ere ez dut nire **alegatoa** egiteko, zeren presidentearen oraina baita une erabakior honetan epaitzea dagokiguna. Patxi Zubizarreta

-Ez izan presarik -eten du epaileak (L)-, epaia eman aurretik prozedura jarraitu, eta bai fiskalak (T) bai abokatuak (I) beren **alegatoak** azaldu beharko dizkigute. Patxi Zubizarreta

Edozein epaimahai aspaldi hasiko zen negar-zotinka halako **alegatu** gartsua entzunda. Lopez de Arana

2 norbaiten edo zerbaiten aldeko hitzaldi arrazoitua.

Gaurko gizartearen alegoria bat egin nahi izan dut edo gizartearen kontrako **alegatoa**, nahiago baduzu. Joxean Agirre

Hilketaren kronika baino hiltzaileen erretratu psikologiko miragarria, gizartearen erradiografia kupidagabea eta heriotza zigorraren kontrako **alegato** zorrotza da, oraindik ere, Truman Capote-ren Odol hotzean, "fikziorik gabeko eleberria". Iñigo Aranbarri

---

alegatu *(ETCn **1.469** agerraldi)*, alega(tu), alegatzen **1** du *ad* zerbait argudioz eta arrazoibidez adierazi.

Cometto zaharrak **alegatu** zuen bizitza ugari direla dagoeneko beren arrastoa aurkitzerik ez dagoen ohiturak: azukre-paperaren kolorea, gizon eta emakumeentzako botoidura desberdina, gondolen brankaren forma, eta janarien arteko ezin konta ahal bateragarritasun eta bateragaiztasunak. Juan Garzia

Nagusiak, ahots dardartsuz, **alegatu** zuen Dahlmann-ek armarik ez zuela. Juan Garzia

Giza Eskubideen Europako Konbentzioaren bigarren artikuluak babestutako eskubidea bizitzeko eskubidea urratu zela **alegatu** zuen Thi Nho Vo emakume vietnamdarrak. Berria - Gaiak

HZren abokatuak indefentsioa **alegatu** zuen, besteak beste "araututako epe laburren barruan ezin delako defentsa egin", baina Auzitegi Gorenak erantzun dio hauteskunde prozesuak "berezkoa" duela "prozeduren erabateko azkartasuna", eta Salak berak asti gutxiago izan duela epaia emateko, defentsak alegazioak prestatzeko baino. Berria - Euskal Herria

Editoreak "nekea" eta "eroaldi iragankor baten mendean egon izana" **alegatu** zituen egun batzuk geroago, ekintzaren arrazoiak azaldu behar izan zituenean. Jon Alonso

Senarra, aldiz, inpotentzia arazo gaindiezinak **alegatuz**, berriro itzuli zen muino bakartu hartara, han non amaren etxea baitzegoen gainaldean eta gasolindegi bat eta motel txiki bat azpialdean. Josetxo Azkona

Nekazariak, bestalde, irainduta sentituko lirateke haurrak ugaltzeko ohiko askatasuna galtzeko arriskuaren aurrean, goseak ez akabatzeko irtenbide bakarra horixe dutela **alegatuz** gero. Iñaki Mendiguren

2 (era burutua izen gisa; ik **alegato**)

2004ko abuztuaren 31: Milosevicek bere **alegatua** aurkeztu zuen eta gezurretan aritzea leporatu zion epaitegiari. Berria - Harian

Heriotza zigorraren aurkako **alegatua** da Krotki film o zabijanju (Ez duzu hilko). Berria - Kultura

Testu hau, ordea, eta gai hauetaz mintzatzen diren gainerako guztiak *pro domo* **alegatuak** dira gehiago egiazko manifestuak baino. Josu Zabaleta

Argentinar prosa narratiboak ez zuen gainditzen, eskuarki, **alegatua**, satira eta ohituren kronika. Juan Garzia

Salaketa gaiztoenak egin dira oinarri logiko txikienik gabe, ideologia demokratikoak kriminalizatu dira, identitateekin jokatu dute eta, azken batean, objektibotasunaren tenpluetatik eskaini dute **alegaturik** alderdikoiena. Txema Ramirez de la Piscina

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alegatu zuen (4)

---

alegazio *(ETCn **3.286** agerraldi)* *iz* alegatzea. ik **alegato**.

AGko lege ordezkariak aurkeztutako 62 orrialdeko helegitea izan zuten mahai gainean magistratuek, eta Estatuaren abokatuaren eta fiskalaren **alegazioak**. Berria - Harian

Hamar minutuko atzerapenarekin korrika heldu zen AGren prokuradorea Auzitegira, baina **alegazio** berriak aurkeztu egin zituen azkenean. Berria - Harian

Historia monastikoaren mila urteak, San Benediktoren garaiaren eta "Erreforma" delakoan eliz erakundeen arpilatzearen artekoak, ezagunak dira, eta ez dago sinetsi beharrik idazle protestante eta antikristauen **alegazio** guztiak. Iñaki Mendiguren

Kultura sailburu Miren Azkaratek, Kirol zuzendari Jose Ramon Garaik lagunduta, **"alegazio** ugari" jaso dituztela aitortu zuen. Berria - Kirola

Saltokien Ordutegien Legean Jaurlaritzak ez du onartu **alegaziorik**. Berria - Ekonomia

Ronek bere erlojuari begira segitzen zuen; Harryk bazekien Buckbeaken **alegazioa** hasteko zenbat falta ote zen begiratzen zuela. Iñaki Mendiguren

Bide bertsutik ere, esan ohi da izate eta aiurriaren bateraezintasunaren **alegazioa** dela eta, dibortzioaren abantaila guztiak ezabatu egiten direla. Andres Urrutia

Administrazioak abiatu duen espedienteari **alegazioak** aurkeztu dizkio enpresak. Berria - Kultura

Bankuek hiru hilabete dituzte **alegazioak** aurkezteko. Berria - Ekonomia

Erregulazio espedienteari **alegazioak** jarri dizkio enpresa batzordeak. Berria - Ekonomia

EAEko kirol federazioak arautuko dituen legeari **alegazioak** egiteko epea luzatu dute. Berria - Kirola

Beraz, hauteskunde prozesuaren aurkako **alegazioak** aztertu egin behar dira. Berria - Mundua

Lehendakariordearen kasuan, nire **alegazioen** aurrean ezein zuzenketaren beharrik ez sumatzeaz gainera, algara ezin biziagoekin hartu zituen haiek guztiak. Joxan Elosegi

Alegazioetan jasotzen dutenez, banakoa da hizkuntz eskubideen jabea eta berdin-berdin bermatu behar zaio eskubidea eskualde batean zein bestean bizi izanik. Berria - Harian

Geroztik eskuarki etorri zen gizon hura, bere mozorro jantzirik gabe, auziaren azken ekitaldietan eta **alegazioetan** egoteko. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alegazio aurkeztu (6); **alegazio guztiak** (3); **alegazioak aurkezteko** (17); **alegazioak aurkezteko epea** (5); **alegazioak aurkeztu** (18); **alegazioak aurkeztu zituen** (4); **alegazioak aurkeztuko** (4); **alegazioak aztertu** (4); **alegazioak egiteko** (5); **aurkako alegazioak** (4); **aurkako alegazioak aurkeztu** (3); **bere alegazioak** (3); **espedienteari alegazioak** (3); **hainbat alegazio** (5); **hainbat alegazio aurkeztu** (3); **kontrako alegazioak** (3)

---

alegera *(ETCn **1.353** agerraldi; orobat **alagera** g.er.)* **1** *izond* alaia.

Neska **alegera** bat duzu begien aurrean, baina, izan, dohakabea naiz. Patxi Zubizarreta

Jules, mutiko trebea, bihurria eta **alegera** zurgintzan ari zen, baina aterperik ordain ez zezakeenez Yvesen eta Thierryren saldoaren magalean egoten zen gauez. Itxaro Borda

Ibilki eta ibilki, batean bihotza **alegera**, itxaropenez betea, bestean gogoa ilun, etsipenak hartua. Janbattitt Dirassar

Oi, arrantzaleen herri gozo, **alegera** eta sotila! Koldo Izagirre

Olde hau harat-honat dabil ilunpean, eta ez dago zoragarriagorik begitarte polit ikuskatuen eta irri **alegera** apalduen nahaste diskretu hau baino. Koldo Izagirre

Hitz hauen goxotasuna baldin badute bazterrek, etapa **alegera** egitera noa. Piarres Aintziart

Paisaia hau, eguzkitan hain **alegera**, hitsa bihurtua zen ilargipean. Koldo Izagirre

Egitura dinamikoa, **alegera**, *besta bai borroka ere bai* leloaz hornitua. Itxaro Borda

Manuela alaba hagitz polita eta **alegera** zen, *la catalana* esaten zioten. Koldo Izagirre

Bizi ginen etxea **alegera** zen. Koldo Izagirre

Luzaroan entzun zuen Grenelleko akordeoien soinu **alegera**. Itxaro Borda

Mendiaren hegalera ematen zuen paretaren orpoan zulo karratu bat zegoen, ur xirripaño garden eta freskoa jalgitzen zen handik, eta harkaitzaren gainean erortzen zen, gero amildegian behera galtzeko harrabots **alegera** eta bizian. Koldo Izagirre

Motxila kendu duelarik bizkarretik, gorputz osoaren dalanda nagiak bular kukutu ahalgeari fiertasun **alegera** eman dio eta espazioari kontentua. Piarres Aintziart

Giro **alegera** batean iragan da Senperen euskal Selekzioaren aldeko eguna, zonbait ehun lagunek parte hartzen zutela. Herria

Besta bat **alegera** bezen kartsua. Herria

Biziki **alegera**, dena solas goxo, begiak amodio pindarrez beteak. Janbattitt Dirassar

12etan zegoela esan ohi zidan, erlojuaren orratzak irudikatuz, zakila tente eta **alegera** zuela alegia. Patxi Zubizarreta

Bizi ginen etxea **alegera** zen. Koldo Izagirre

Afari denboran izan da zonbait kantu ere gure gazten lagunak ere etorriak baitziren bazter herrietarik denen artean gaitzeko giro **alegera** ekarri dute. Herria

Luzaroan entzun zuen Grenelleko akordeoien soinu **alegera**. Itxaro Borda

Mendiaren hegalera ematen zuen paretaren orpoan zulo karratu bat zegoen, ur xirripaño garden eta freskoa jalgitzen zen handik, eta harkaitzaren gainean erortzen zen, gero amildegian behera galtzeko harrabots **alegera** eta bizian. Koldo Izagirre

Taxiak utzi zituen, plaza baroko eder batean: europar estiloko etxeen aitzindegi koloretsuek halako aire **alegera** emaiten zioten lekuari. Ramuntxo Etxeberri

2 (adizlagun gisa)

Erregeak pozarren eta **alegera** hartu zuen jakintsua. horrela hiriaren animo egoera zein den jakin dezakeela ziurtatzen du, noiz dagoen triste eta noiz **alegera**. Patxi Zubizarreta

Ez nuke esango zakurra **alegera** ez zegoenik. Harkaitz Cano

Guk hain bizi eta **alegera** ikusi izan diogun behakoa goibela eta eroria zuen. Jon Muñoz

Pedro Huizik, aitzitik, ez zirudien **alegera**, nengoen tokitik hura ezin seriosago nekusanez. Joan Mari Irigoien

Ez nuke esango zakurra **alegera** ez zegoenik. Harkaitz Cano

Erregeak pozarren eta **alegera** hartu zuen jakintsua. Patxi Zubizarreta

Arrai eta **alegera** banengoen ere alde batetik, kezkaturik nengoen bertzetik... eta kezkaturik ez ezik, izuturik ere bai. Joan Mari Irigoien

Zeren gogoz eta **alegera** dabilenari gaitz dena ere erraz egiten baitzaio. Joan Mari Irigoien

Banoa ene hitzordura bihotza **alegera**. Filipe Bidart

Mila liberakoa galtzetako sakelan sartu, Sena bazterrera itzuli eta bere ezbehar-lagunez kontu gutxi eginik lepo-buruak garbitu zituen, kasik **alegera**. Matías Mujika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alegera bat (4); **alegera batean** (9); **alegera baten** (4); **alegera bizi** (3); **alegera eta** (31); **alegera izan** (3); **alegera jarri** (4); **alegera jarri nintzen** (3); **alegera sentitu** (5); **alegera sentitu nintzen** (3); **alegera zen** (6); **arrai eta alegera** (22); **bazterrak alegera** (3); **besta alegera** (8); **besta alegerak** (3); **besta giro alegera** (3); **beti alegera** (7); **bezain alegera** (3); **bihotza alegera** (6); **biziki alegera** (4); **denak alegera** (6); **emazte alegera** (4); **ere alegera** (4); **eta alegera** (74); **eta alegera bizi** (3); **eta alegera jarri** (4); **eta alegera sentitu** (5); **eta alegerak** (9); **eta giro alegera** (4); **ezin alegerago** (9); **giro alegera** (17); **giro alegera batean** (8); **goxo eta alegera** (3); **herrikoia eta alegera** (3); **pozarren eta alegera** (24)

---

alegeragarri *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* alegeratasuna ematen duena.

Orain dik oren bat artean, ordu **alegeragarri** batzuen gozateko asmotan. ETC-literatura, saiakera

Nahikoa zaio eskuetan luzaz laztantzen duen xaboiaren hagun lodiak belarrondo eta sudur azpian uzten diona, mila xori kantari bezain **alegeragarri** den hura.Azkenik txapela jantzi eta prest dago. ETC-literatura, saiakera

---

alegeraki *adlag batez ere ipar* alaiki.

Oroitzen zen nolako haserrealdia jasaten zuen Agatak, jadanik hirurogeita hamar urteak **alegeraki** gaindituak zituen Louise andere xaharra, Luixa bihurtzen zuenean. Itxaro Borda

Hondarrean, gure mahaira bideratu zen, **alegeraki**, solasaldi askoren bilduma eginez: [...]. Itxaro Borda

Gazte eta adineko, denak **alegeraki** jostatu dira. Herria

Lapurtarren Biltzarrak **alegeraki** ospatu du bere 25. urtemuga, igandean, Uztaritzen. Herria

Amodioa omen zen eta amaren irudiz, ondoko udaberrian ezkondu beharrak ziren **"alegeraki** eta serioski, hiru apez aldare gainean, zinez elizkizun ederrak, otoitz, soinu eta kantuekin" Herria astekarian idazten zen bezala. Itxaro Borda

-Berori desterrurat doa... eta ni ere berorrekin joanen naiz, eta **alegeraki** eta uroski joanen naiz gainerat, zeren berorrentzat desterrua den hori ez baita enetzat desterru izanen, nola izan baita berorrenganik urrun egoitea azken urteotan. Joan Mari Irigoien

Eta zuk guztiak arraiki eta **alegeraki** errezibi. Pello Salaburu

Handi dadila gure azken etorria osasunean eta **alegeraki**, eta goresmenak ait'ameri eta bi aitatxi amatxieri! Herria

-Hiep! Zertan gira, puttil? dio **alegeraki** Ermitak. Michel Oronoz

Horretaz guztiaz ari ninteke ahalegin handirik gabe, baina, aldi berean, bada beste arrazoi bat sobera **alegeraki** ez aritzeko. Jon Alonso

Hirugarren adinekoen bazkaria Claverie ostatuan **alegeraki** iragan da, eta holako opariak ez dira galtzerat utzi behar, nahiz guziak ez ziren etortzen ahal. Herria

Agian denbora onak segituko du, euri on hunen ondotik, iragan ditzagun **alegeraki** gure 5 egun Besta Herrikoiak 16, 17, 18, 19 eta 24ean! Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alegeraki eta (6); **alegeraki iragan** (7); **alegeraki ospatu** (6); **biltzarrak alegeraki** (3); **biltzarrak alegeraki ospatu** (3); **eta alegeraki** (10)

---

alegerarik *adlag* alegeraki, pozik.

Orai etxerat sartuko gira bihotza **alegerarik**. Herria

Pikasarriko apezak ere izan zuen beraz nahigabe frango, bainan ez zioten, kasurik egiten aintzina zoan beti Jainkoaren lanetan, hazkarrik eta **alegerarik**. Xipri Arbelbide

---

alegeratasun *iz batez ere ipar* alaitasuna.

Idien joarea entzun nuen, eta zuhaitzen ikara; ikusmira **alegeratasun** bikainekoa zen; haizeak dena bizitzen zuen, eguzkiak dena urreztatzen zuen. Koldo Izagirre

Hots, **alegeratasun** handiena, iparraldeko jendeak ere jastatzea on lukeena! Herria

Eguzkia gordetzen delarik, beirak eta kriseiluak pizten direneko, hiria itzarri egiten da, biziaren dardara hautematen da nonahi, **alegeratasunaren** zipriztina, higitzen hasia den erlauntza duzu. Koldo Izagirre

Eguna iragan da **alegeratasun** handienean, hiru bertsulari gazteren agurratik aratseko musikaren azken doinuraino. Herria

Undarrerat, kasik jende guzia heiekin dantzan ari zela, gaitzeko **alegeratasunean** . Herria

Bidarraiko maldan gora, kabalkadaren soka luzea zoan zaldunen urratsetan, dena kolore, dena **alegeratasun** , jauntzi ederrak dirdiran, haur dantzari guziak lorios, ondotik herriko plazan bildua zen publiko guzia xarmatuz. Herria

Atseginez bete dauku ikusgarriak, ikusiz gazte horien airostasuna eta **alegeratasuna** . Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alegeratasun handienean (3)

---

alegeratsu *izond ipar* alaitsua.

Eskuak ortzira zuzenduz, otoizlari eta eske, besoak gibelekoz aitzin kulunkatuz, nahikoa **alegeratsu** zen ahairea New Yorkeko elizetako beltzek airoski hegaldaraziriko gospel moldean harilkatzen lagunduko bailuan jendeak. Itxaro Borda

Aurpegiak **alegeratsu** ziren joan den egunean, Baionako ospitalean euskararen fagoretan izenpetu den hitzarmenetik landa. Herria

Zer mentsak, pentsatu dukete batek baino gehiagok! Bainan bihotzak **alegeratsu** ginituen. Herria

Seaskako ordezkariak prest ziren sartze honetan begitarte **alegeratsuaren** erakusteko: 93 ikasle gehiago kontatzen dituzte ikastola sare osoan, horien erdiak 47, Ziburu, Kanbo eta Donaixtiko kolegioetan bai eta Baionako Etxepare lizeoan. Herria

---

alegeratu *(ETCn **284** agerraldi)* , alegera(tu), alegeratzen da/du *ad ipar* alaitu.

Ai, nola **alegeratu** nintzen, osaba Joanikot ikusi nuenean! Joan Mari Irigoien

Musika honek **alegeratu** egiten du biztanleria. Koldo Izagirre

Jin da eta bazterrak **alegeratu** dira! Milesker beraz, Olentzero, Euskal-Herriko hiri eta baserrietarat berriz ere hola agerturik! Herria

Alegera gaitzala bazterturik pena. Herria

Eta nik orain galdeginen diat: nork bete du hobeki Jainkoaren borondatea, behatu dionak edo behatu ez dionak, jakinik ezen Jainkoak edertasuna egin zuela ez hartaz goibel gaitezen baina **alegera** gaitezen? Joan Mari Irigoien

Eta arraitu eta **alegeratu** nintzen, zeren gauari berriro baitzerraion eguna, gaurik gabeko eguna eta sekula gabekoa. Joan Mari Irigoien

Cartierrek hautatu lekuan baratu zaretelarik, nehor ez da **alegeratu** , horretarako ere sobera unaturik baitzarete. Xabier Montoia

Eta denek behar dugula **alegeratu** ! Kopetaren artetan zimurtzeko arrazoinik batere ez baginu bezala...! Herria

Bazterrak pixka bat behar dira **alegeratu** eta harrotu! Menane Oxandabaratz

Eguerditan Sorginak Bandako musikariek aperitifa **alegeratuko** dute. Herria

Zure haurtzaroko itsasoa miretsi nahiko zenuke, Sokoa edo Donibane aldeko itsaso harro bizia, baina Mediterraneoaren bistak ere handizki **alegeratuko** zintuzke. Xabier Montoia

Bazkaria Noblia eta Pont d'Enfer ostatuetan, Alkhat eta Ezponda bertsulariek **alegeraturik** . Herria

Meza ederra, Laurent, Maddi eta Battit-en semeak, bere lagunekin osatu musika taldeak ederki **alegeraturik** . Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alegeratu nintzen (3); **alegeratuko dute** (4); **alegeratzen dira** (3); **bazterren alegeratzeko** (8); **denak alegeratzen** (3); **eta alegeratu** (3)

---

alegeratzaile *izond* alegeratzen duena.

Aratsaldea hola joanen da, mahainen inguruan izanen direla solas eta kantu, **alegeratzaile** ere beti hor bezperako musikariak. Herria

Bi azkoitiar hauek ezagunak ditugu; gure herriko besten **alegeratzaileak** dira. Herria

---

alegi ik **alegia**[1].

---

alegia[1] *(orobat **alegi** g.er.) iz* ipuina edo elezaharra, gehienean hitz neurtuetan moldatua, pertsona gisa jokatzen diren animaliak edo gauzak agertzen direna eta ondoriotzat ikasbide edo irakaspen morala ematen duena.

Orroitu naiz bazela **alegia** bat Aita LEON Uztaritzeko apezak kondatua: [...]. Herria

La Fontaine-n bi **alegi** euskaraturik. Herria

Samaniegoren **Alegiek** garai hartan, berritasuna ekarri zuten bertsoz idatzitako kontakizun ziren aldetik, baina atzetik tradizioaren soka luzea zekarten: munduko bazter guztietan ia gizakia gizaki denetik ezagun diren animalien bidezko narrazio didaktikoak, hau da, ikaskizunen bat proposatzen duten kontakizunena. Berria - Kultura

Bertzalde, ikastolako haurrak ere hor izanen dira zenbait kantu eta **alegi** emaiteko. Herria

Bigarren zenbaki hortan, gerla solas berriz ere nagusiki, tartean Oxobi-ren **alegia** batekin. Herria

Arrainak mintzo, jendearekin solasean ari, hori ez da nihun aditzen, salbu orobat lehengo **alegia** xahar batzuetan! Herria

Gauza onena edo txarrena izaiten ahal da beraz, Esope Greziar **alegi** -idazleak, mihiarentzat erran zuen bezala. Herria

Berak irakurleari egiten dio ohar bat erranez: "Trajeria zer zen Etxahun Irurikoaren arabera: laurden bat historia, hiru laurden **alegia** . Herria

Jentilen alegiek iraun zirauten, apaingailutara apaldurik. Juan Garzia

Hala, **alegien garaian** , uholde eta dilubioen ondoren, gizon armatuak irten ziren lurretik, eta elkar suntsitu zuten. Iñaki Iñurrieta

Esoporen **alegien** itzulpenez gain, ordea, ezer gutxi idatzi zuen, ezagutzen denik bederen. Berria - Kultura

Alegien bitartez egileek gizarteari ispilua jarri gura izaten diote aurrean, inoren buruan zentsa dadin. Berria - Kultura

Hor aipatzen diren ipuin edo **alegien benetako** tituluak beste batzuk dira, noski. Xabier Olarra

2 itxura.

Zonbat aldiz aditzen dugu biolentzia eta bakea betikoen ahoetan; pazifistaren **alegia** egiten dutenengan. Herria

3 ***alegia egin***

Bada, zerua prefazioa delako, **alegia egina** zegoen zerbait, eta betidanik egina dagoen zerbait oro da, bera baitan oro gordetzeko ahalmena duelako, postontziek bezalaxe. Karlos Linazasoro

Baina nola hunkiak baitira bai erresuma, bai ene etxekoak, bai eta ene idazkiak, ezin dut, bekaturik egin gabe, edo arazoi larri zerbait gabe, **alegia egin** , ezen Liburu Sainduak dio [...]. Piarres Xarriton

Nik ez dut **alegia eginen** . Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alegia bat (10); **alegiazko bat** (3); **alegiazko baten** (3); **alegiazko herri** (3); **alegiazko mundu** (4); **alegiazko mundu batean** (3); **alegiazko zentzuan** (3); **bizi alegiazkoak** (3);

den alegiazko (3); **eta alegiazko** (7); **ez alegiazko** (6); **ez alegiazkoa** (3); **izeneko alegiazko** (3)

[3] alegia berak (3); **alegia bere** (8); **alegia deus** (33); **alegia deus ez** (29); **alegia deusez** (8); **alegia eta** (53); **alegia eta deusez** (29); **alegia ez** (21); **alegia ez dela** (4); **alegia ez zuela** (3); **alegia guztiak** (4); **alegia hori** (3); **alegia ik** (3); **alegia leku** (3); **alegia nik** (3); **alegia nire** (4); **alegia parean** (5); **alegia zer** (5); **arte alegia** (5); **atzean alegia** (3); **aurka alegia** (4); **bat alegia** (20); **batean alegia** (3); **batera alegia** (3); **bera alegia** (7); **bere emazteak alegia** (3); **beste alegia** (3); **bezala alegia** (5); **bidez alegia** (4); **burua alegia** (3); **buruz alegia** (3); **da alegia** (4); **dagoela alegia** (3); **dela alegia** (13); **dena alegia** (6); **direla alegia** (3); **du alegia** (4); **duela alegia** (6); **duena alegia** (3); **dut alegia** (3); **dutenak alegia** (5); **egitea alegia** (6); **egiteko alegia** (3); **emazteak alegia** (3); **ere alegia** (3); **eskatu alegia** (3); **esoporen alegia** (3); **eta alegia** (8); **ezean alegia** (3); **gabe alegia** (10); **hau alegia** (3); **hitzak alegia** (3); **hori alegia** (5); **horiek alegia** (6); **hura alegia** (4); **izan zela alegia** (3); **izatea alegia** (6); **lana alegia** (6); **lehenago alegia** (3); **mina alegia** (3); **nagusia alegia** (4); **nik alegia** (4); **samaniegoren alegia** (3); **semea alegia** (3); **urtean alegia** (4); **zegoela alegia** (3); **zela alegia** (14); **zen alegia** (4); **zera alegia** (7); **zerbait alegia** (3); **zirela alegia** (5); **zuela alegia** (4); **zuena alegia** (3); **zutela alegia** (3)

---

alegia[2]

1 *adlag ipar* "bailitzan, balitz bezala"-ren (edo aditz pertsonaren arabera, "bainintzan" etab.-en) edo "itxurak egiten"-en baliokidea den partikula.

Kasik sekula elizarat ez jiten-eta, hortxe zaudezte bi eskuak junt, begiak zeru-alde, **alegia** sinestez eta urrikiz gaindituak! Herria

2 *lok* aurreko esaldiaren esangura berdintsua duen, edo haren esplikagarri den esaldi baten bukaeran ezartzen den hitza, "hau da"-ren baliokidea; aurrekoa jasoaz, bigarren esaldiaren hasieran ere ezartzen da.

Alegia, mendia bai, baina ibilbide lasaia ere bai. Berria - Harian

Alegia, iritzi publikoa da komunikabeek sortutako iritziazerbait erreala den erabakitzen duena. Berria - Gaiak

Izan ere, Jaurlaritzak iritzi dio Europa haratago doan egitasmoa dela, **alegia**, "pertsonen arteko bakea, elkartasuna eta giza oreka bultatzeko" egitasmoa. Berria - Harian

Nahiz eta AEBetan 4,1 milioi indiar soilik egon biztanleen %1,5 **alegia**, eragin egin dezakete Ordezkarien Ganberarako hauteskundeen nondik norakoan Dakota Hegoaldeko edo Arizonako estatuetan, esaterako. Berria - Mundua

Okerrena beste hau da, **alegia**, esanahi gabeko esaldiak manipulatzea. Berria - Harian

Oposizioa, kontserbadoreak eta Alderdi Liberal Demokrata **alegia**, legearen kontra agertu ziren. Berria - Mundua

Uraren kultura berriaren ildoan jorratzen diren ideiak jasotzen dira, **alegia**, baina modu orokorrean, helburu gisa. Berria - Harian

Erkidego horri izen baxenabar-historikoago bat eman beharko liokete, OZTIBARRE-ARBEROA/Ostabat-Arberoue, **alegia**, nahiz eta Arberoa guztia ez hartu. Herria

Misterio horretara hurbiltzeko, urrundua zaudenean, **alegia**, nik uste dut lehendabizi bizi hunkidura eta emozioa daudela (nire kasuan katarsia bat izan zen), eta gero hasten direla prozedura intelektualak. Herria

Zer esan nahi du Bruselak, Europako ikasle, artista, enpresari edo langile xumeak, etxekoak **alegia**, AEBetakoak bezain errespetagarriak ez direla? Berria - Mundua

Kasik sekula elizarat ez jiten-eta, hortxe zaudezte bi eskuak junt, begiak zeru-alde, **alegia** sinestez eta urrikiz gaindituak! Herria

Eguneko zentro egokiak, **alegia**, zaharrek dituzten beharrei egokituak. Berria - Harian

Trufaz bezala hedatu den jostagarri txarra hau berriz, 22 urteko amerikano gazte batek telebixtarat igorri duena amerikano preso bati burua moztea simulatu baitute, gero berek erranez jostatzeko ari zirela, **alegia**. Herria

EAJ-EAk ez du jakin bere ikur politikoa, plana **alegia**, amu gisa erabiltzen. Berria - Harian

Horretarako, baina, 7.900 milioi kilometro egin beharko ditu, eta 2011n iritsiko da Eguzkitik gertuen dagoen planetara, Merkuriora, **alegia**. Berria - Gaiak

Animaliekin zein gizakiekin probatu aurretik, zer aztertu nahi den jakin behar dugu eta esperimentua eraginkorra izango den jakin; emaitzak zerbaiterako balioko duela ziurtatu, **alegia**. Berria - Gaiak

Euskadiko politikak norabide bat hartu du: alderdi askoren arteko elkarrizketa posible izango den norabidea, **alegia**. Berria - Harian

3 ***alegia (eta) deus ez*** *ipar*

Alegia deus ez, berrehun bat kide gurutzatzen da elkarte horretan. Herria

Lapurdi barnealdea izanen da ere hunkia **alegia** deus ez: Lekorne eta Urketako bulegoak arratsaldez baizik ez dira zabalduko eta Beskoitzekoa hetsirik egonen da astelehen goizetan. Herria

Anartean, ezkerraldean marrumaka dabiltza, eta zer hixtuan, gobernuak, **alegia**-eta deusez, aldaketa hori, dena jukutria, aberatsenen alde egiten duela eta ez batere jende xehearen onetan! Herria

Igandean, gure kostaldean herriz-herri ibili dena, **alegia** eta deusez. Herria

Anartean, ezkerraldean marrumaka dabiltza, eta zer hixtuan, gobernuak, **alegia**-eta deusez, aldaketa hori, dena jukutria, aberatsenen alde egiten duela eta ez batere jende xehearen onetan! Herria

Departamenduaren batasuna laudatuz **alegia**-eta deusez. Herria

· **Alegia** deus, autoari gerla deklaratua zaio Angelun. Herria

Egiazki harrigarrizko lana zioten manatzen eta dena borondate ari zen lanean, artelaz lasa alimaleak altxatu eta leku egokirat erematen **alegia** eta deusik. Herria

---

alegialari *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)* *izond/iz* alegiak idazten dituena.

Bazen, jargia batean, **alegialari** ohi bat, okhitua. ETC-literatura, saiakera

Bestea aldiz, Jules Moulier, Otxobi olerkari eta **alegialari** famatua, Donostirin luzaz erretore egon zen. ETC-literatura, saiakera

Iriarte **alegialariarena** da aipua. ETC-prentsa

Behialako bideak eraldatuta dauden arren, Guardiako aintzira naturalak eta Carbon haitzarteak hautatu ditugu Felix Maria Samaniego **alegialariaren** sorlekutik Lapueblaraino jaisteko. ETC-prentsa

Bertan bizi izan zen Felix Maria Samaniego idazle **alegialari** guardiarra, 1775. urtean hiriko alkate izendatu zutenean. ETC-entziklopedia

Idazle euskaldunen artean, Mogel bezala, XIX. mendean bereziki agertzen dira **alegialariak**. ETC-entziklopedia

Literaturan, Tomás de Iriarte antzerkigile eta **alegialaria** eta Benito Pérez Galdós eleberrigile idazle ospetsuen artean ditugu. ETC-entziklopedia

---

alegiar *(orobat **alegitar**)* *izlag* Alegiakoa, Alegiari dagokiona; Alegiako biztanlea.

Alde batetik, Erroizenea hernaniarra eta, beste aldetik, Renobales **alegiarra**. Berria - Kirola

Bederatzi lagunez osatuko da epaimahaia: Felix Irazustabarrena **alegitarra**, Mikel Aizpurua debarra, Mirari Azula lekeitiarra, Eneko Bidegain lapurtarra, Jon Abril beratarra, Joseba Santxo Uriarte getxotarra, Saroa Mitxelena beratarra, Zigor Leunda billabonatarra eta Josu Telleria bilbotarra. Herria

---

alegiatxo *iz adkor* alegia xumea.

Eskolak arintze aldera, Zenonen **alegiatxoa** konta diezaiekezu: Akilesek ez du inoiz ere dortoka harrapatuko, hura harrapatzeko egin behar duen distantziaren erdia egiten duenerako dortokak, apurtxo bat bada ere, aurrera egin izango duelako bere bidean. Joxerra Garzia

---

alegiaz *adlag* itzulinguruka.

Aholku batez hauxe zion: "ez ari beti **alegiaz**". Herria

Eta egitekotan zidan azalpena egitean plazer eta atsegin zuela igartzen zitzaion ahotsez esan zidan bekatuon berri, ez zuzenean, zeharbidez eta **alegiaz** baino. Edorta

Jimenez

---

alegiazko 1 *izlag* egiazkoaren itxura besterik ez duena.

Lehenengo zatian argi ikusten denez, **alegiazko** mundua da hori, fantasiazkoa. Julen Gabiria

Alegiazko Euskal Herritik datuen Euskal Herrira pasatu behar dugu. Berria - Euskal Herria

Alegiazko ixtripu larri baten antzespena Baionan. Herria

Grifoa **alegiazko** animalia bat da, hegoduna, gorputza lehoiarena eta burua hegaztiarena duena. Iñaki Mendiguren

Zer eta **alegiazko** etsai baten kontra ari garela. Aingeru Epaltza

Alegiazko baldintzaren erabilera ustekabeko eta egoki horrek txundituta, buruari eragin zioten Ruche jaunak eta Léak, biek batera, mirespenez. Jon Muñoz

Errealitatea hartzen zuen beti hizpide, ezagutu berri zuen **alegiazko** errealitatea, eta hura berehalaxe jakinarazi nahi izaten zidan. Ander Irizar

Nik ez dut **alegiazko** gauzak asmatzen ibiltzeko batere astirik, gertatu zaidan asko baitut kontatzeko. Pello Lizarralde

Herfek diosal egin eta **alegiazko** kapela bat kendu zuen. Lopez de Arana

Espektroak ziren, **alegiazko** izakiak, nahita soilik agertzen ziren mamuak, panpina mekaniko malgukidunak. Jose Morales

Beste marrazki batean **alegiazko** eszena bat ageri zen, san Pauloren katedrala suak harturik, Londresko Sute Handian. Xabier Olarra

Atsegin handia sentitu zuen, atsegin handia jadanik lurjabea zelako -ez **alegiazko** lurjabea, egiazkoa baizik-. Jose Morales

Txinak, aldiz, uhartearen aurkako **alegiazko** eraso saio bat egin zuen. Berria - Harian

Metapolis izeneko **alegiazko** espazioa sortu dute, "hiritik haratagoko tokia". Berria - Kultura

Bi bizioren arteko **alegiazko** lerroaren erdian legoke bertutea, orekan. Askoren artean

Alegiazko bi arte-mota horiek emozioak nahi dituzte oroitu, baina emozio horiek aldez aurretik daude diseinatuta, prefabrikatuta, oinetakogilearen kasuan gertatzen den moduan. Askoren artean

Jakinduria etxaldea zure antzera gobernatzeko; etekin seguruak ateratzen asmatzeko, zuk bezala; ez **alegiazko**, baizik eta egiazko ondasunen jabe izateko, zu bezala. Jose Morales

Billete-faltsutzaile bat zebilela probintzia horretan, benetako izena **alegiazko** deitura desberdinen azpian ezkutaturik. Jose Morales

Alegiazko zentzuan, organo probetxuzko hau zirrara eta sentipenen egoitza dela esan ohi da. Xabier Olarra

Une zehaztugabe eta ikaragarri hori, zeinean ezin den pentsatu, halako egun urrun batera atzeratzen zen, **alegiazko** eta gertagaitz bihurtzen zen, edozein heriotza bezala. Jose Morales

Ni **alegiazko** neure ildotik nindoan lerro-lerro. Txillardegi

2 *izond*

bere koldarkeria eta are, koldarkeria sentitzearen lotsa begi **alegiazko** eta akutsatzaileetatik ezkutatzeko. Jon Alonso

Bosch-entzat, horixe zen larrimina sorrarazteko modurik onena: aurrez aurre jartzea mundu **alegiazko** baten desordena gure eguneroko munduaren ordenarekin. Juan Garzia

Haietako bat zutitu eta pantailan agertzen ez den soka **alegiazko** bati eragiten hasi da, saltoka. Arantxa Iturbe

Orain bazuen gogamenaren ibilaldietan paseatzeko edo esploratzeko erabil zezakeen antzoki edo ibiltoki **alegiazko** bat, alderdi berriak, ikuspegi berriak hartzeko, edonora begiraturik ere. Xabier Olarra

Hiru dimentsioko eraikin **alegiazko** hori, Pontitoren maketa, gogoan edukitzeko eta eraikitzeko gai da, nonbait. Xabier Olarra

Magnanik, batzuetan, aireko puntu **alegiazko** batetik ikusiko balu bezala margotzen baitzuen Pontito. Xabier Olarra

Egoera edo izaera **alegiazkoa**, benetakotik bereizten duena bikaintasun deritzan elementu batek. Xabier Olarra

3 *alegiazko errealitate*

Eginahal guztian saiatzen zen **alegiazko errealitate** hura xehetasun osoz azaltzen; gizakiak eta paisaiak ere halaxe deskribatzen zituen: zorrotz eta zehatz. Ander Irizar

Ikus-entzuleari **alegiazko errealitatea** eskaintzen dio etengabe; oso autoerreferentziala da, bere baitan kiribildua eta berton nagusi diren balioak look, light, sex eta diruaren ingurukoak dira, batez ere. Txema Ramirez de la Piscina

4 *alegiazko helbide* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Prozesuek maneiatzen dituzten helbideei **alegiazko helbideak** deitzen zaie eta memoria nagusiko helbideei helbide fisikoak. Egikaritzen ari den prozesu batek esteka dezakeen **alegiazko helbideen** heinari prozesuaren **alegiazko helbideen** eremua deritzo (normalen V hizkiarekin adierazten delarik) eta ordenagailuan erabilgarri dauden helbide fisikoen heinari ordenagailuaren helbide fisikoen eremua (normalean F hizkiarekin adieraziz). ETC-entziklopedia

Programek **alegiazko helbideak** erabiltzen dituzte, hauek helbide fisiko bihurtzeko memoriaren kudeaketarako unitateak (MMU txip multzoa) itzulpena egiten du. ETC-entziklopedia

5 *alegiazko irudi* *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi)*

Bere ustez, komunikabideek euren mundu birtuala sortzen dute, **alegiazko irudiei** errealitateari baino garrantzi gehiago emanez. ETC-prentsa

Errealitate areagotuaren teknologiarekin, ordea, erabiltzaileak mundu erreala ikusten duen bitartean, **alegiazko irudiak** mundu horretan gainjarrita agertzen zaizkio. ETC-prentsa

Baina soziologikoki **alegiazko irudi** bat da hori, gurea bezalako gizarte plural batean bizimodu asko eta asko baitaude. ETC-prentsa

Bezeroak pantailan ikus dezake bere **alegiazko irudia**, nahi beste jantzi probatu eta, azkenik, egokien jotako era, tailu edo kolorea eskatu. ETC-literatura, saiakera

Alegiazko irudiaz jardutean, ordenagailua datorkigu burura. ETC-zientzia, zuzenbidea

Objektu-puntu bati dagokion irudi-puntutik izpi guztiak igarotzen direnez (edo, **alegiazko irudien** kasuan, puntu horretatik igaroko balira bezala jokatzen dute), objektuaren edozein puntutatik ateratzen diren izpi banaka batzuen ebakidura-puntua aurkitu besterik ez dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Euskal Aro Foraleko egoerari zilegitasuna emateko, apologistek holako **alegiazko irudi** bat asmatzen dute. ETC-entziklopedia

6 *alegiazko memoria* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Alegiazko memoria edo memoria birtuala informatika arloan, existitzen ez den memoria nagusia (Random Access Memory RAM nagusiki) simulatzeko software teknika da. ETC-entziklopedia

Bai, memoria hitza egonen da hiztegietan kontsultagarri: ordenagailuen hainbat memoria, **alegiazko memoria**, esaterako, azalduko dira. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alegiazko bat (3); **alegiazko baten** (3); **alegiazko herri** (3); **alegiazko mundu** (4); **alegiazko mundu batean** (3); **alegiazko zentzuan** (3); **bizi alegiazkoak** (3); **den alegiazko** (3); **eta alegiazko** (7); **ez alegiazko** (6); **ez alegiazkoa** (3); **izeneko alegiazko** (3)

---

alegiazkotasun *iz* alegiazkoa denaren nolakotasuna.

Begiko izan zuen Ruche jaunak arkitektoaren ideia ederra, argazkiaren errealitatea hobetsi baitzuen, islen **alegiazkotasuna** baino. Jon Muñoz

---

alegilari *iz* alegia idazlea.

Idazle eta **alegilaria** (1745-1801). Berria - Kultura

alegin ik **ah**__alegin__.

---

alegindu ik **ah**__alegindu__.

---

alegitar ik **alegiar**.

---

alegoria *(ETCn **383** agerraldi)* **1** *iz* adigai edo ideia baten irudi bidezko adierazpena; adierazpen era horren bidez eraturiko artelana edo literatura lana.

Aurtengoan Marc Antoine Charpentierren *Les Arts Florissants* **alegoria** eta beronen *Acteón* opera eskainiko dituzte Christophe Rousset orkestra zuzendariaren gidaritzapean. Berria - Kultura

Baina askozaz gehiago ere bada: **alegoria** bat da, mendebaldeko beste edozein testuk baino zorrotzago laburbiltzen duena fedearen, abertzaletasunaren eta askatasunaren paradoxazko leize gaindiezina. Joseba Zulaika

Lehenengo zatian, Botticellik eta Lippik egin zituzten irudi sakratu eta profanoak ikus daitezke, hala nola Botticelliren *Minerva eta zentauroa* eta Lippiren *Maitasunaren **alegoria***. Berria - Kultura

Hala, asaba zaharren baratze hori ez da, muinean, ez baratze eta ez lorategi, baizik eta Euskal Herriaren **alegoria** bat, edo euskaltasunarena. Xabier Mendiguren Elizegi

"Perla beltza", maitasun *fou* edo zoroaren inguruko **alegoria** bat izateaz gainera, ariketa linguistiko bat izan zen: neure buruari -eta besteei- erakutsi nahi nien, nonbait, zenbaterainoko esaldi luze eta korapilatsuak egin nitzakeen. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire asmoa ez zen gai horri heltzea, baizik eta eranskin honen mezu nagusia azpimarratzea: **alegoria** guztiek ematen dutela irrealak harik eta konkretatzen eta itzultzen diren arte; ipuina gaurkotu egin behar dela aldiro, zirkunstantzien eta premien arabera. Bernardo Atxaga

Alegoria dute hondakinek beren tropo egokia, ez sinbolismoaren betetasuna; eraikuntza sendoa eta hondakinen zatiak elkarren artean antitetiko dira, mitoa eta **alegoria** diren bezala. Joseba Zulaika

Halakoxea da bera, **alegoria** horren guztiaren edukiari darion doktrina nagusia, hots, gizonak ez diela soilki bere animali izaeraren bulkadei jarraiki behar. Xabier Kintana

Azalpen honen ondoan eta **alegoria** horren misterioa argitu eta gero, ez duzu usteko galde diezadakezula Esker oneko oparia egin beharrean nengoen, eta gaur neure botoak bete ditut hitz hauen azpian zer datzan. Xabier Kintana

Jakintsu metafisikari eta teologo handi guztiak, egia maite zutenak, era horretako zerbait irakatsi nahi zutenean, betiere **alegoria** eta igarkizunen bidez mintzo ziren. Xabier Kintana

Azpimarragarria da ekonomilariek metaforak, irudiak, analogiak, **alegoriak** eta antzeko literatura baliabideak erabiltzeko duten joera. Iñaki Heras

Azkenean, pare bat jolas metaforikorekin luzatu ondoren, **alegoriak** utzi, eta bere ipurmasailak aipatzen nituen besterik gabe. Ramon Saizarbitoria

Alegoriarik eta igarkizunik gabe irakatsi nahi izateak iluntasuna eta hitz murriztapena dakar. Xabier Kintana

Obra honetan testu biblikoen hitzez hitzeko komentarioa egin nahi digu, ez **alegoriazkoa**. Imanol Unzurrunzaga

Perpaus horiek, lehen begiratu batera hanka-bururik gabeak, aise justifika litezke kriptografiaz nahiz **alegoriaz** baliaturik. Juan Garzia

Alegoriazko sinbolismoa kontzeptu batetik abiatzen da, gehiago oraindik, irudi egiten den edo irudi egin nahi duen kontzeptu bat da. Josu Zabaleta

Margolan horren enkargua (1691-94) egin zuten jesuitek misioetan egindako lana irudikatzen du **alegoria** moduan. Josu Zabaleta

Gorroto dut arte sinbolikoa, irudikapenak bere kabuzko mugida oro galdu eta makina, **alegoria** bilakatzen dena; alfer ahalegina, gaizki ulertua. Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Alegoria morala sortu nahi du egileak. Berria - Harian

Obra honek badu, halaber, bigarren xedea ere: profeten liburuek gordetzen dituzten **alegoria** ilunak azaltzea. Xabier Kintana

Alegoriarik bihurrienak eta sotilenak esaten zizkioten, eta Txitxikovek bekokitik izerdia parrastaka isurtzeraino hausnartu behar izaten zuen haien esanahi ezkutukoa. Jose Morales

Gogoan har **alegoria** profetikoak bitarikoak direla. Xabier Kintana

Andre Pobretasunaren eta Frantzisko eta beronen jarraitzaileen arteko elkarrizketa luze eta gozoan zehar, **alegoria** teologiko honek -hori baita idazkia- Pobretasunaren bikaintasuna azpimarratzen du Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Irudikapen bati **alegoria** zentzua emateak berak erakusten du argi eta garbi irudikapen hori alegiatzat hartzen dela, inolako egiazkotasun ez fantasiazkorik ez errealik gabeko alegiatzat, eta nolabaiteko egia moralen baten frogantza izateko dela egina. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alegoria bat** (7); **alegoria bera** (3); **alegoria dela** (4); **alegoria eta** (4); **alegoria hori** (4); **alegoria horren** (4); **da alegoria** (3); **eta alegoria** (7)

---

alegoriagile *izond* alegoriak egiten dituena.

"Hauek nitaz honela diote: Ez al da berau **alegoriagile** bat? "(Jb, 21,5), bai eta Salomonek nola hasi zuen bere liburua ere: [...]. Xabier Kintana

---

alegoriatsu *izlag* alegoriez beterik.

Horregatik, apirilari estanpa bat egiteko orduan, **alegoriatsu** dabiltza eta eszena idilikoak, landako eta artzain gazteen dantza eta jolasekikoak margotzen dituzte. Pello Zabala

---

alegoriko *izond* alegoriarena, alegoriari dagokiona.

Jerusalemeko eta Babiloniako Talmudetako pasarte **alegoriko** baten aipamena. Xabier Kintana

Poetak, Danteren eta Vicoren antzo, bidaia **alegoriko** bat marrazten du, non gizadia eta euskaldunak prehistoria denboretatik gaurko egoera urbanoetara garatu diren. Joseba Zulaika

Beste margolan **alegoriko** batean, elizan jarri du satelite baten diskoa: izarretara -eta Jainkoarengana- doan disko bat. Xabier Olarra

Hildakoen itzalak zebiltzan jiraka omenezko zeru hits baten argi ahularen pean, eta Plinio Nomelliniren koadro **alegoriko** bat zirudien. Koldo Biguri

Uste dut ez gaudela oker diogunean ezen, Maimonen arabera, paradisuko kontakizuna, hala bertsio biblikoan nola talmudikoan, oinarrizko giza psikologiaren aurkezpen **alegorikoa** dela. Xabier Kintana

Idazteuna interpretatzerakoan testu biblikoen esanahi **alegoriko** edo espirituala bilatzera animatzen gaitu. Imanol Unzurrunzaga

Ez da ez metaforikoa ez **alegorikoa**. Bernardo Atxaga

Aitzitik, errotik moztu nahi du aniztasun hori, zentzu **alegorikoan** eta irudizkoan, baita egiazko zentzu odoltsuan ere. Jon Alonso

Ikusleetatik inortxok ere ez du usteko han irudikaturik dauden pertsonaia sakratuak (eta are gutxiago pertsonaia **alegorikoak**, kontinenteak irudikatzen dituztenak, adibidez) egiaz ikusten ari denik. Josu Zabaleta

Ondoren Zelanok Is 6,1-3ko eta Ez 1,5-25eko ikuskarien azalpen **alegoriko**-morala egiten du. Askoren artean

---

alegorikoki *adlag* era alegorikoan.

Gabetasun horrek gaizkia **alegorikoki** irudikatzen duten hiru karatula ditu: Satan, zeruko fiskal akusatzailea, heriotzaren aingerua; gaitz fisikoa, sufrimendua eta heriotza irudikatzen dituena, eta, azkenez, txarrerako sena, geure barruan xaxaka ari zaigun tentazioa. Xabier Kintana

---

alegorizatu *izond* alegoriko bihurtua.

Mitologia lirudikeena psikologia **alegorizatua** besterik ez da. Xabier Kintana

---

alegrantzia **1** *iz* alaitasuna, poza.

Ene bihotza ere bertze kanpai bat zen jada, bertzeekin batean jotzen ari zena, din-dan, din-dan, ene **alegrantzia** eta ene bizipoza adierazi nahi ziona mundu osoari. Joan Mari Irigoien

Alegrantzia eta irri gozoa zen guzien begitartean. Herria

Bi sentimendu errotu zitzaizkidala, biak ere kontrakarrean zeudenak, zeren sentitu bainuen, batetik, halako kezka bat, osabari modu hartan trufa egiteagatik eta zor nion begirunearen hausteagatik [...]; baina baita halako **alegrantzia** eta halako satisfazionea ere, bertzetik, ene kezkaren gainetik zegoena mementu hartan. Joan Mari Irigoien

Hamaika urteko haurra nintzen, ordea, eta jendearen **alegrantziak** ni ere kutsatu ninduen. Aingeru Epaltza

Ez zukeen esplikatzen ahalko nolaz kantua oldartzen zen malkoen artetik **alegrantziako** ezpata gisa, aita edo ama galdu berri zuten seme-alaben arimetarik. Itxaro Borda

Baina hainbeste goxotasun eta **alegrantziaren** artean, ez nuen denborarik ukan ene barne-barneko kezkez oroitzeko eta zoramenaren zoramenez mundu irreal batean sartu nintzen. Daniel Landart

Ondora hurbiltzen zaizkienei denbora, kuraia eta **alegrantzia** oparitzen dizkiete horiek. Berria - Kultura

Alegrantzia eta irri gozoa zen guzien begitartean. Herria

Elkarte horrek egin du bere ateratzea ekainaren ondarrean 100 bat zirela leku ederrak ikusi beti bezala **alegrantzian** eguna pasatu dute. Herria

Egun ederra pasatu dute **alegrantzian**. Herria

Haradino heltzeko eskaintza guk egin-eta, haur baten **alegrantzian** eman zigun bere baia, eta nola etzuen han xoratua agertu bere burua! Herria

Munduko bertze hegal batzuetan **alegrantzietan** direlarik Amerika hola hunkiturik, oihuka diotela: Allah Jainkoa handia da! Ez ote da Jainko bera? Guk ikasia dugu bizkitartean Bat baizik ez dela. Herria

Ordea, urduritasun hark gehiago zuen **alegrantziatik** kezkatik baino, zinez bainengoen bozkarioz gainezka, neure lehen itsasaldi haren aitzinean! Joan Mari Irigoien

Orduan, erromesek, **alegrantziaz**, eskerrak bihurtzen zituzten arrosarioa erranez. Piarres Aintziart

1954ean sortuek ospatu dituzte **alegrantziaz** beren 50 urteak. Herria

Gora Nafarroa, eta gora Urbiaingo jauna! Eta neuri, **alegrantziaren alegrantziaz**, nigarra jauzi zitzaidaan. Joan Mari Irigoien

Duela hiruetan hogoi urte maiatzaren zortzian gertatu zen **alegrantziazko** urte burua ospatu dugu ahalik eta hobekienik. Herria

Baina, orain bahoa edo bihar bahoa, gure adioa **alegrantziazkoa** izan ledin nahi nikek. Joan Mari Irigoien

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ikustekoa da ordea nola, jolas alaietan, **alegrantzia** laño eta egiazko baten irudia eskaintzen duen! Jon Muñoz

Gorroto zutenek ere **alegrantzia** handia hartu zuten, noizbait -ez nahi bezain arin baina- iritsia zelako agure hura gehiago pairatu beharko ez zuten eguna, ez han ez beste ezein espetxetan. Koldo Izagirre

Alegrantzia handiz hartu dituzue lehen tantak, aspalditik irrikaturikoak. Xabier Montoia

Espaloietan jendeak bandera amerikarrak harrotzen zituen **alegrantziarik** handienean, batzuek beren etxe-goretako leihoetarik konfetiak aurtikitzen zituztela. Itxaro Borda

Denbora batean, Odesan, gazte hura, **alegrantzia** iraingarri harekin danba sartu ez bazen printzearen gelan, nire aita hark aitormena emango zidan erraz asko. Matías Múgica

Horra zer bihotzeko **alegrantziarekin** emaiten zuen bere bizia. Xipri Arbelbide

3 (hitz elkartuetan)

Baina, hiltzearen mahuma zeruan zirurika ibiltzen zela zirudien, saia hegalari: bizi-**alegrantzia** muskilen itotzaile. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alegrantzia eta** (4); **alegrantzia handia** (3); **alegrantziaren alegrantziaz** (3); **alegrantziarik handienean** (3); **ene alegrantzia** (5); **eta alegrantzia** (7); **solas eta alegrantzia** (3)

---

alegratu, alegra(tu), alegratzen *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi; orobat **alegeratu** ETCn **339** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **alegeratu** agertzen da)* da *ad* alaitu, poztu.

Eta neu, non eta nola irabazi nuen kontatuz, ea ez al zen **alegratzen**. ETC-literatura, saiakera

Alderantziz: agian, entenitzen ez dituen gauza nahasi eta ilun horiekin **alegratzen** baita gure bihotza maizenik eta gozoenik. ETC-literatura, saiakera

Nik: bizi labur horretaz **alegratzen** nintzela. ETC-literatura, saiakera

Alegratu egin nintzen ikusi nuenean irisa alpino arkatz marroiz marrazten, dri-dra, dri-dra, astiro eta aratz, esku-motrizitate ona duen umeak eskolako marrazki bat betetzean bezala, tresnari behar besteko presioa eginez eta ingeradatik atera gabe. ETC-literatura, saiakera

"Deskuiduan oraindik triste baldin badago, nik gustura **alegratuko** nuke!", izan da hirugarrena. ETC-literatura, saiakera

Zein oinazegatik **alegratzen** gara? ETC-literatura, saiakera

Nik: bizi labur horretaz **alegratzen** nintzela. ETC-prentsa

Bizitze soilak **alegratzen** duela dio bere senarrak. ETC-prentsa

Telefonicak (%6,99) atzo bere inbertsiogileei egindakoak behintzat majo **alegratu** zituen. ETC-prentsa

Gizarte ekimenaren garrantziaz jabetzen hasiak garen honetan, ekintza eder guzti hauek eguna **alegratzen** duten bezala, bere sostengurako baliabideak eskaini behar dira. ETC-prentsa

Hori beti izan da hala, eta egiari zor, jogurin batzuk bista **alegratzeko** modukoak dira, kar, kar, kar! ETC-prentsa

Eta liluratu zaitu berriro Tahrir plaza beteta ikusteak, **alegratu** zara herria Anaia Musulmanen eredu teokratikoarekin gogaitzeak. ETC-prentsa

MIKEL.- Majo **alegratua** hator, redios., hori ile-apaindegira joanda bakarrik? Neuk ere joan beharko dinat orduan. ETC-telebista

OILARRA. - **Alegratzen** nauk hi ikusteaz. ETC-telebista

---

alegre *adlag* alai.

Alegre ikusten haut. Unai Iturriaga

Bezperan, afari batean egonda, etxerantza **alegre-alegre** gentozala, hara non presentaten jakun bidean kontrola. Xabier Amuriza

---

alegria[1] *iz* alaitasuna.

Hainbat iturrietarik edaten dute Elauditarrek: euskal kantuaren ohidura, Pirineoetako dantza soinua, folk mugimendua, Mali zolako blues-aren arbasoak, Kuba-ko soneroen **alegria**, Lisboako fadisten melankolia, Gito eta Manux-en zalutasuna, Mediterraneoko perkusioen sua... Herria

---

alegria[2] *iz* kolore biziko landare apaingarria *(Impatiens walleriana)*. ik **baltsamina**.

-Ederrak dauzkazu **alegria** horiek. -Ez dira **alegriak**, azaleak dira. Berria - Kultura

---

alegria[3] *iz* kantaera flamenkoaren modalitatea.

Jazzaren egitura tradizionalei jarraiki, tangoak, tangilloak, **alegriak**, buleria konpasak eta fandangoak interpretatzen ditu pianoarekin. Berria - Kultura

---

alehun *zenbtz* makina bat, hamaika.

Ikusten nolako hintzen orain berrehun, larehun, **alehun** urte? Patziku Perurena

---

alehungarren *ord adkor* zerrenda batean ehundakaren ondoren doana.

Berak zekiela ez, esan zuen, bere galdera hari berak erantzunez, eta, orduan, gau horretan **alehungarren** aldiz, negarrari eman zitzaion. Oskar Arana

---

alehunka *adlag* ehundaka.

Thomas Youngek, 1802an, sumaturik ez zela beharrezkoa **alehunka** hargailu desberdinak izatea begian -bakoitza uhin-luzera desberdinekoa (izan ere, ia nahi duten edozein kolore sortzen dute artistek paleta mugatu batetik) -, hiru hargailu mota proposatu zituen, aski ziratekeelakoan. Xabier Olarra

---

alehunkatu, alehunka(tu), alehunkatzen du *ad* alehunka gehitu.

Galera-sentsazio eta izialdura horiek, areagotu eta **alehunkatuak** ziren I.jaunaren kasuan; izan ere, kolorearen ikusmena galtzeak mundu naturalaren edertasuna, jendarteko mundua eta eguneroko bizitzaren osagaitzat kolorea duten hainbat eta hainbat gauza ez ezik, artearen mundua galtzea ekarri baitzion, eta harexek bideratua zuen bere talentu eta sentiberatasun nabarmenki ikusmenezko eta kromatikoa berrogeita hamar urtez [...] Xabier Olarra

---

alejale *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *izond/iz* bihiz elikatzen dena.

Belarjale, **alejale**, haragijale... ez da bereizketarik; denok gara, orain, orojale. ETC-prentsa

Txori **alejaleen** beherakada handia dela dio, %52, eta, oro har, zerealen landa eremuari loturiko hegaztiak %28 gutxitu dira. ETC-prentsa

---

aleka 1 *adlag* banakoa alea dela; banaka.

Batzuk serieka azaltzen dira, lau, bost, sei edo zazpi argazkietako multzoan, beste batzuk **aleka**. Berria - Kultura

Alekako gertatze horrek, jarraipena, denboraren jarioa, aditutzat ematen digu. Patziku Perurena

Saguaren eta gizakiaren kasuan, azkenik, [...] modua dago orain zeinahi ere gene bakartzeko, hura bakterio batean milioika **aleka** ugaltzeko, xehe-xehe aztertzeko, atzera ere sagu batean txertatzeko, ikusteko zein diren garapenaren urratsak eta zer ehunetan abiarazten den gene horren jarduna. Juan Garzia

Mallorcan irabazteko meriturik egin zuen, baina batean gauza bat dela, bestean beste bat dela, hirunaka bildu beharrean **aleka** ari da puntuak biltzen. Berria - Kirola

Foruzainek txistuka hartu zuten, eta gauza bera gertatu zitzaien Parlamentura **aleka** sartu ziren Gobernuko beste sailburuei. Ramon Etxezarreta

Dimisioa ematen lehena Carlos Cristobak izan zen eta atzetik, **aleka**, etorri ziren besteen kargu uzteak. Berria - Euskal Herria

2 (izen gisa) alea.

Aise izanen ginen milaz goiti han juntatuak, bertakoak hauek, inguruko herrietarik erdutuak haiek, urrunekoak ere **aleka** batzuk, Iruñatik -munduaren azkenetik kasik, urbiaindar gehienentzat- bizpahiru... guztiak festarako prestik eta iratzarririk. Joan Mari Irigoien

Hamarka **aleka**, baita ehunka ere, inprimatutako liburuak Europako mutur batetik bestera zebiltzan, eta liburu-dendak elikatzen zituzten, haiek ere ugaritzen zirelarik aldi berean. Jon Muñoz

3 *aleka-aleka*

Tartean, lortzen bada produktu hori - hiztegi entziklopediko bat, demagun - egunkari batean sartzea **aleka-aleka** egunkari erostunak ordain dezan eta egunkari horrek euskal produktu bat saltzeagatik diru publikoa hartzen badu, hainbat hobeki. Pello Salaburu

Gero, ez gara hemen gauzak harrotzen eta bazterrak nahasten ibiliko, nahiz - diodan gisa - dokumentazio zehatza dagoen, historiak aurrera segitu zuen eta hiztegi hau, **aleka-aleka**, diru publikoa hartzen zuen egunkari batek eskaintzen zien erosleei. Pello Salaburu

Klima aldaketen alderdiak ere aletzen goazke orrialde hauetan, **aleka-aleka**. Pello Zabala

4 *aleka batzuk*

[...] aise izanen ginen milaz goiti han juntatuak, bertakoak hauek, inguruko herrietarik erdutuak haiek, urrunekoak ere **aleka batzuk**, Iruñatik- munduaren azkenetik kasik, urbiaindar gehienentzat- bizpahiru... Joan Mari Irigoien

5 *aleka hartu* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Eta horrela Lizarra-Garaziko motoreak **aleka hartu** du. ETC-prentsa

Fabrikatzaileak ematen ditu zilindroko atorraren barne-neurriak, baina horiek aldatu egin daitezke zilindroak **aleka hartzekotan**. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aleka aleka (3)

---

aleki *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi)* **1** *iz* laborea.

Eta berdin usapalak eta txoriek, hots, **alekia** baino jaten ez dutenek. ETC-literatura, saiakera

-Eskerrak azaroan jada erein genituela garia eta beste **alekiak** ! ETC-literatura, saiakera

Garai batean Europako gure ordezkari politikoek akordio politiko batzuk sinatu zituzten eta konpromiso batzuk hartu ere bai, Europak zekalearen alde egingo zuela erabaki zuen, bihia, **alekien** edota zerealearen alde. ETC-prentsa

Alekien trafiko horren sorburua askotan Bordele izaten zen. ETC-entziklopedia

2 *iz* liburukia, aldizkari baten zenbakia.

Eusko Jaurlaritzaren "Bidegileak" bildumako **aleki** bat daukagu osoki Bidadorri eskainia. ETC-literatura, saiakera

"Euskara" aldizkariaren azken **alekian** , 1883an beraz, _i_Sartu aurrean_/i_ poesia agertu zen, Ivan Tourgueneff idazle errusiarraren lan baten itzulpena dena. ETC-prentsa

Besterik dira idazlearen memoriak, argitaratzeko-edo gertu utzi zituen sei **alekiak** . ETC-prentsa

---

alelo **1** *iz* gen bat ager daitekeen era edo egitura.

Populazio polimorfo batean, hautespen naturalak egitura proteikoak faboratzen zituen, eta, beraz, gene-egiturak -**"alelo"** direlakoak-, ugalketarik oparoena ahalbidetzen baitzuten. Juan Garzia

Aleloen arteko aldeei zor zitzaizkien espezie bakoitzean aurkituriko berezitasunak. Juan Garzia

APOEren laugarren **aleloak** arazoak eragiten ditu kolesterolaren funtzionamenduan. Berria - Gaiak

APOEren laugarren **aleloa** dutenek arrisku handiagoa dute Alzheimerra izateko. Berria - Gaiak

2 ***alelo azpirakor*** *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Alelo azpirakorra letra xehez (a, adibidez) idatzi ohi da, eta alelo gainartzailea, aldiz, letra larriz (A, esaterako). ETC-entziklopedia

Genetikan, atzeragurutzaketa organismo bat homozigotoa ala heterozigotoa den jakiteko erabiltzen den froga bat da. Horretarako, aztertu nahi den organismoa (genotipo ezezaguna duena) organismo homozigoto **alelo azpirakor** azpirakor batekin gurutzatzen da. ETC-entziklopedia

Akats genetiko hori herentziaz jasotzen da eta X kromosomari lotutako **alelo azpirakor** baten bidez transmititzen da. ETC-entziklopedia

Aleloak gainartzaileak ala **alelo azpirakorrak** izan daitezke. Bi horietako zein den jakiteko, heterozigotoari so egin behar zaio: alelo gainartzailea da heterozigotoaren fenotipoan agertzen dena. ETC-entziklopedia

3 ***alelo gainartzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Kolore horia eragiten duen aleloa (A) **alelo gainartzailea** da, eta kolore berdea eragiten duena (a) alelo azpirakor azpirakorra. ETC-entziklopedia

Genotipoa zelula, organismo edo banakako baten osaera genetikoa da. Gehienetan ezaugarri batez aritzeko erabiltzen da; esaterako, gizakian albinismoa eragiten duen geneak bi alelo ditu, A **alelo gainartzailea** eta a alelo azpirakorra, eta horien konbinaziotik hiru genotipo sortzen dira. ETC-entziklopedia

---

aleluia *(orobat **alleluia**)* *iz* katolikoen liturgiako zenbait otoitzetan tartekatzen hitza; poztasunezko oihu hitza.

Berriro esan zuten: **"Aleluia** ! Elizen arteko biblia

Baina egiaren aldareko intsentsu mareagarri horrek ere ez nau "piztu da Ada, **aleluia** !" kantatzeko atakan jarriko. Anjel Lertxundi

Eta **aleluia** zuri, Jauna! Joan Mari Irigoien

Eta, eskerren emaiteko, begiak zerurat jasoko dituzu, eta ilargia ere ezin beteago ikusiko duzu... eta bihotz-bihotzez erranen duzu **aleluia** eta **aleluia** ! Joan Mari Irigoien

Guk goresten dugu Jauna, orain eta beti. **Aleluia** ! Elizen arteko biblia

Aleluia !, sendatua zela betiko, **Aleluia** . Felipe Juaristi

Ez **alleluiarik** kantatu Pazko aurretik, Garizuman eta Aste Santuan debekatuta zegonez. Pello Zabala

Aleluia , **Aleluia** , **Aleluia** ! Israelen errege! Askoren artean

· *(ironiaz)* Alergia, ale gorria, alegrantziazko arratsa, **aleluia** ! Joxean Sagaztizabal

---

aleluiaka *(orobat **alleluiaka**)* *adlag* aleluia esanez.

Inor ez zegoen han **Aleluiaka** -eta hasteko; ni gazteegia nintzen, eta liluratuegia nengoen isiltasun hartan. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina ez ote da ere hortik beretik pizten ahal Bazkoz **alleluiaka** kantatzen dugun Kristo piztu eta piztulearen beharra eta egia! Herria

---

aleman *(ETCn **13.796** agerraldi; orobat **alemandar** g.er. eta **alaman** g.er.)* **1** *izlag* Alemanikoa, Alemaniari dagokiona. ik **alemaniar**.

Juduek eginikako talde militar hori Winston Churchill-ek sortua zuen, **aleman** judu gazte batzurekin. Herria

Karpatoak kultura, hizkuntza eta etnia ugari elkarrekin bizi ziren munduko zatia zen: hungariar katolikoak **aleman** protestanteen eta errumaniar ortodoxoen etxe berean bizi ziren, mendebaldeak ekialdearekin bat egiten zuen, antigoalekoak modernotasunarekin. Berria - Kultura

Horren etsenplü hoberena da Julio LOPEZ, espainol gerrillaria, Espainiako gerlan parte hartü züana Francoren aitzi, Nazionarteko Brigadetan, **aleman** komünistekin batean. Herria

Alferrik jardungo dute Aostako frankofonoek Italiako futbol taldea animatzen Frantziaren kontra, edo **Aleman** kantziller berriaren izena badakigu orai eta hura da Angela Merkel anderea, bozak doi-doi irabazi zituena. Anjel Lertxundi

Han bisitatu Reichstag egoitza guziz famatua, **aleman** deputatuen biltokia. Herria

Bolzanoko **aleman** hiztunek gauza bera egiten, Alemania bada Italiaren aurkaria... Ez dituzte chauvinistenak engainatuko: Italiaren etsai bat dago italiera hitz egiten ez duen bakoitzaren larruan, non?, eta Italiaren muga-mugan. Anjel Lertxundi

Antikristo izan nahi zuen **aleman** filologo harentzat, filologia sineskortasunaren etsaia da; ez dago filologo izaterik "antikristau" izan gabe. Iñaki Segurola

Aleman errabinoaren sermoiaren ondoren, beste gorazarre bat izan zen, New Yorkeko hebrear aldizkari baten argitaratzaileak egina. Koro Navarro

Kunig von Vach **aleman** fraileak aldiz beilaria abisatzen du "Hemen zarela eta, arnotik xuhur edan ezazu, zeren batzuei, arima sutan ezartzen die, arnoa ezkargia bezala baitoa". Piarres Aintziart

Jendeak ez zigun kasurik egiten, presaka zebiltzan **aleman** langile saiatuak, baita garagardotegiaren pareko mozkorrak ere. Fernando Rey

Gerla aipatzean, **aleman** soldaduek bazuten bandera gorri luze bat, "gama"-dun gurutzearekilakoa, alimaleko haga batetik dilindan, preseski Herriko Etxearen ondoan, han baitzuten beren "Komandantur"-a. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aleman erizainak zerbait izkiriatu zuen kartoin puxka batean eta eni eman. Marzel Etxehandi

Benno Müller-Hill **aleman** genetistak garbi utzi du nola Verschuer eta Mengele Alemaniako zientzialaririk hoberenekin lan eginak ziren. Juan Garzia

Adio **aleman** familia bateko partaide izatearen pribilejioari: hori ere une horretantxe etorri zitzaidan burura. Anjel Lertxundi

Zerbait gisaz nahi zuten anitzek **aleman** aztaparretatik ihes egin, Alemaniara ez joaiteko, han hilen baitzituzten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azkenak, orain ditugunak, umaldi bateko bi **aleman** ardi-zakur dira, senideak. Gotzon Garate

Mendietatik **aleman** arrazaren jainko zahar eta ahaltsuen, Wotan eta Thorren ahotsek dei egiten digute. Ramon Etxezarreta

Tratu bat egin dute **aleman** eta frantses gobernuek, berriz has diten garraioak La Hague-tik Alemaniarat buruz. Herria

Nazioen artean finkatuak izan ziren hitzarmenak zangopilatu zituen **aleman** armadak. Michel Oronoz

Aleman Inperioaren bi agente. Juan Garzia

Beste **aleman** ikurrin haundi bat bazagon, Lasako Muno mendi kaskoan, Nafarroari so. Herria

Matxitxako eta Ogoño artera lantzean **aleman** ontziren bat agertzen zen. Edorta Jimenez

Helbidea lorturik, bertatik bidali nion, posta-truke pertsonal gisa, *Se questo è un uomo* ("Hau gizon bat bada") neure liburuaren **aleman** itzulpenaren ale bat. Juan Garzia

Aleman letrak ikasten abiatu berri nintzen, eta izugarri gustatzen zitzaidan *Urstoff* hitza (Elementu, alegia: hitzez hitz, Jatorrizko gai) eta haren osaketan ageri zen Ur aurrizkia. Juan Garzia

Zure **aleman** -gramatika mahai gainean dago. Antton Olano

Garai bateko antzerkiaren usadioari jarraituz, **aleman** tankerako yiddishera jotzen zuen noizean behin, Kafkarekin izan zituen harremanez mintzatzen zenean batez ere. Koro Navarro

Barruko askatasuna pentsatzaile **aleman** protestantismotik datozenek irakatsi diote. Joxe Azurmendi

Haren alderat Europa batuak egiten dituen diru laguntzak behar litazkela ttipitu dio **alaman** gobernuak. Herria

2 (izenondo gisa pertsonekin)

Ingeniari **aleman** bat edo umetxo ero bat lasai asko koka ditzakezu Obaban. Bernardo Atxaga

Uribetarren etxean adibidez kapitain **aleman** bat sartu zuten, hegazkinlaria, errepublikarrak ziren Uribetarrak, alemana gizon edukatua omen zen, atsegina eta adeitsua, txokolatea eta tabakoa eramaten zien askotan. Mikel Hernandez Abaitua

Ararteko baten bidez, Abetz-i galdegin nion zentinel **aleman** bat jo zuen frantses bat tiroka ez zezan. Marzel Etxehandi

Polizia **aleman** bat, SSetako bat. Felipe Juaristi

Eta soldadu **aleman** batzuk ikusi ziren, soldadu **aleman** batzuk, gehiago ezin. Felipe Juaristi

Laster jakin dudanez, ofizial **aleman** batekin zuzenean berba egiteko aukera izan du. Urtzi Urrutikoetxea

Hitlerren kontra atentatu bat izan da, eta oraingo honetan ez dira izan komunista juduak edo kapitalista ingelesak, nobleziako jeneral **aleman** bat baizik, kondea eta gaztea, gainera. Josu Zabaleta

-Parisen nagok -pentsatu zuen Del Vallek saminkiro-, munduko hiririk zoragarrienean, eta kankailu **aleman** baten zurrungak dituk gau osoan entzun dudan bakarra. Alberto Ladron Arana

Goiz guztian zehar jendea sartu eta sartu aritu zen, harik eta bi soldadu **aleman** ailegatu ziren arte. Fernando Rey

Barrako mutikote **aleman** ilehoriak ez zidan kasu handirik egin, eta esan zidan Tino ikusteko biharamunean itzuli behar nuela. Fernando Rey

Igerilekua zuen eta gaztetxo **aleman** mordoa, hantxe denak dantzan ipurtaldea mugitzen musika berrien soinuan. Fernando Rey

Autore **alemanetan** ez dago "izpiritu" metafisiko aldez aurrekorik, edozertsutarako ahalmen zedarrigabetu gisa. Joxe Azurmendi

Berak espreski aitortua Nietzsche eta Spengler-en bere ezagutza da (autore **alemanetan**), eta "ene nietzscheismua", nik hori bakarrik aztertu baitizut. Joxe Azurmendi

Atzerritar bat nintzen Parisen, arrotz **aleman** bat, artean ez zen astebete Alemaniak Polonia inbaditu zuela. Anjel Lertxundi

Klaustro txikian -beirateduna zen- zortea izan nuen: turista **aleman** talde oso bat hantxe zegoen multzoturik, apaiz katoliko bat gidari. Joxe Austin Arrieta

Lotinant jauna, hona hemen **aleman** herria; beragatik lan egiten ari zarelakoan zaude. Anjel Lertxundi

Ez zuan odol bakarrekoa: bazian bere ukitu **aleman** eta italiarra zainetan, eta gainerakoa hungariarra zuan. Xabier Olarra

Lau soldadutxo **aleman** hituen, eskaileratxoan elkarri bultzaka, bete-betean harrapatu gintuztenak. Josu Zabaleta

Baina odol **alemanez** edertua orain. Koldo Izagirre

3 (izenondo gisa bestelakoekin)

Bere gogozko itsu eta gor batek baino ezin zezakeen dudarik izan Europa **aleman** batean juduek izango zuten paraderoaz: [...]. Juan Garzia

Etxe **aleman** hartan Janen gelan jarri ninduten lotarako, eta hark ez zidan lo egiten uzten. Fernando Rey

Malenkonia zen etxe **alemanera** gauaz etortzen zena, nik txikitatik ongi ezagutzen dudan malenkonia iluna. Fernando Rey

Akisgranen jaio zen eta alemana da sortzez; Napoleonek frantses egin zuen (Napoleonek eskualde **aleman** hura guztia Frantziari anexatu zion, alegia), Inperioak soldadu, eta frantsesez hitz egiten du. Koldo Izagirre

Ez nituen soportatzen film **aleman** haiek, zeren are gehiago sentiarazten zidaten Giselak ni utzi izanaren zauria. Fernando Rey

Adierazpen horren ordez ez da mundu intelektualarena erabili behar, azalpen **alemanetan** eskuarki egiten den moduan; izan ere, intelektualak edo sensitiboak ezagutzak besterik ez dira. Ibon Uribarri

Bidean barrena nindoala, hara non ikusten dudan han ondoko zelaietan lur hartzen hegazkin **aleman** bat, zikoina bat, berrogeita hamar metroan lur hartzen duten horietakoa. Juan Garzia

Bereziki garagardoa, edaria eta edalontzi **aleman** erraldoiak. Herria

Bere entzule ikasiek xeheki jasotzen dituzte beren dialekto **aleman** -alsaziarrean. Joan Mari Lekuona

· Artzain-txakur **alemanetan** handienak haginka egiten dio armari, ahotik bitsa dariola, amorratuta. Oskar Arana

4 *iz* Alemaniko herritarra. ik **alemaniar 2**.

Txikia nintzela, **aleman** bat sartu zen etxe ondoko haratagira, berea beste hizkuntzarik ez zekiena. Joxerra Garzia

Aleman batek eman zuen, azkenik, teoria horren lehenengo demostrazio osoa: Karl Friedrich Gaussek, "matematikarien printzeak". Jon Muñoz

Harro begiratzen nion haziari: **aleman** batena zen. Anjel Lertxundi

Lasai egoteko esaten nion, ez nuelako inolako asmorik **aleman** bihurtzeko. Fernando Rey

750 bat **aleman** ba omen ziren Itsasun, horietatik 250 SSak. Eneko Bidegain

Eskerrak gure musikari horiek **aleman** desertoreak ziren eta ez benetako errusiarrak. Felipe Juaristi

Ezaguna da Troiako hondakinak **aleman** batek ikertu zituela eta **alemanen** eskuetan izan zela altxorra harik eta sobietarren eskuetara igaro zen arte. Edorta Jimenez

Bertako biztanleak -ukrainiar, **aleman**, judu eta errusiarrak- zalaparta ofizialki kontrolatuan bizi ziren hiri hartan, aire usteldu ko etxe ilunetan. Xabier Olarra

Zinez nahi baitu ez dadin izan ez portugesik, ez gaztelarrik, ez frantsesik, ez ingelesik, ez **alemanik**, ez italiarrik, ez edozein herrikorik arbuiatuko lukeenik edo gutietsiko, haren herritar batzuen hutsak edo itzalak ikusi dituelakotz. Piarres Xarriton

Alemanok errezelo handia sortzen genien paristarrei, eta nire frantses traketsak, erdia italierazko hitzez josia, ez zuen asmatzen nire jatorrizko hizkuntzaren azentua ezkutatzen. Anjel Lertxundi

· **Aleman-aleman** bat, zer arraio!, esan zidan sukarrarekin topatu ninduenean, eta **aleman-alemana** ez nintzen izango beharbada (biziki eskertu nion nire judutasuna ez aipatu izana), baina banintzen mutil sasoikoa. Fernando Rey

5 (izenondoekin)

Lo gehiegiak ahuldu egiten ditik gorputza eta espiritua, ahuldu kontzientzia, ahuldu **aleman** onaren dohainak. Anjel Lertxundi

Aleman handi bat zen, bizar-gorria, bazkaldu eta afaldu bere gelan egiten zuena, eta inorekin hitz egiten ez zuena. Josu Zabaleta

Ezin zuen burutu **aleman** burugogor haiekin. Alberto Ladron Arana

Lantzean behin gora begiratzen genuen, ze edozein momentutan ager zitekeen berriro **aleman** gaizto haietako bat bere betaurreko beltzekin. Joseba Sarrionandia

Deabruak hartutako **aleman** txatxu haien asmazioa, eta orduantxe hasten nintzen ni nerbiosten eta asaldatzen. Fernando Rey

Aleman bertutetsu bat!, neskak. Anjel Lertxundi

Gizon beltzaranekin ezkontzen ziren emakume **aleman** ilehoriak agertzen ziren. Fernando Rey

Aleman prestu batek ez dik sekula errebantxa ukatzen, nik, ahal nuen destaina handienaz. Anjel Lertxundi

Nola ausartzen zara amesgaiztoa deitzen **aleman** gazte guztiok urte eta erdiz aberriari eskaini behar diogun lan-zerbitzuari! Anjel Lertxundi

Göering-i entzun nion esaten **aleman** ez-duin asko zegoela istripu probokatu batean bere burua zauritu, gerrari izkina egin eta gerra-pentsioa kobratzen zuena. Anjel Lertxundi

Ordurako aditzen ez zuten bere belarrientzat errepikatu nituen Dresdendik **aleman** zoritxarreko haiek ekarri zituen tren laster hartako nagusiaren hitzak: [...]. Fernando Rey

Friedrich Wolff **aleman** protestanteari entzun bazion, nola ez zidan, bada, niri entzunen, katolikoa izanik! Joan Mari Irigoien

6 (hitz elkartuen lehen osagai gisa)

-Zeurok arduratuko zarete, orduan? -esan zuen **aleman** -jatorria adierazten zuen frantses behartu batez. Anjel Lertxundi

Amerikar herrian oro har ezkutuan zeuden nolakotasun militarrak 1917-18 eta 1941-45eko **aleman** -amerikar gerretan agertu zitzaizkien aurkari alemanei. Iñaki Mendiguren

Etzi, berriz, euskararen azterketa; baita ingeles, frantses edo **aleman** probak ere, bakoitzak aukeratu duenaren arabera. Berria - Euskal Herria

Aleman -agiri aizunei esker alemana izaten segituko nuen (aizuna, baina alemana). Anjel Lertxundi

Armairuan aurkitu nuenak -arropa, oinetakoak, **aleman** -italiera hiztegi bat eta interes gutxiko liburu batzuk alemanez- ez zidan deus esaten Anjel Lertxundi

7 Alemaniako hizkuntza. ik **alemanera**.

Agureak nongoa nintzen antzemango zion italieraz egiteko nire moduari, **aleman** nahiko garbian hasi baitzitzaidan: [...]. Anjel Lertxundi

Anne Frank: ikasketak: ingeles, **aleman** eta nederlanderazko takigrafia, geometria, aljebra, historia, geografia, artearen historia, mitologia, biologia, Bibliako historia, Holandaren historia. Josu Zabaleta

Thomasen diskurtsoa **alemanez** izan zen. Edorta Jimenez

Alemanez ari ziren. Koro Navarro

Zeuk, jakina, ongi egingo duzu **alemanez**. Markos Zapiain

Alemanez ere ez daki. Edorta Jimenez

Agente katoliko bat eskatu zuten, fede handiko gizon bat eta, erran dizudan bezala, **alemanez** jakin eta aleman itxurakoa izan behar zuena. Alberto Ladron Arana

Harrigarria benetan **alemanez** esatea **alemanez** ez dakizula. Askoren artean

-Geldi Geldi -oihukatzen zuten SS-ek **alemanez**. Eneko Bidegain

Banekien euskaraz ez ezik gaztelaniaz, galizieraz, katalanez eta seguru asko **alemanez** eta beste hizkuntza batzuetan ere argitaratuko zela. Berria - Kultura

Ada ondo moldatzen zen **alemanez**, eta esaldia errepikatu eta gero, erantsi zuen: [...]. Anjel Lertxundi

Kantek **alemanez** pentsatzen zuen, eta **alemanera** itzuli zituen Hume eta Rousseau, hurrenez hurren ingelesez eta frantsesez pentsatzen zutenak. Joxe Azurmendi

Alemanez erantzuten genion guk. Anjel Lertxundi

Aldizkaria erdia **alemanez**, erdia yiddishez argitara genezake. Koro Navarro

Nor dabil hor?, entzun nuen gizaseme baten ahotsa, lehendabizi italieraz eta gero **alemanez**. Anjel Lertxundi

Hannak **alemanezko** esatari gisa lan egin zuen BBC-n. Joxe Austin Arrieta

Alemanezko adibide horrek bokal-harmoniaren beste ezaugarri garrantzizko bat aipatzeko aukera ematen digu. Lourdes Oñederra

Jatorrizkoak ez du hitzaurrerik, **alemanezkoak** ere ez. Xabier Olarra

Eta espainieraz eta **aleman** kaskarrez behin eta berriro erran zion Schenkerri berak bizi egin nahi zuela. Alberto Ladron Arana

Aleman itxian hitz egin nion, ezer uler ez ziezadan. Anjel Lertxundi

-SSei buruzko erreportajea egiten ari naiz nire aldizkarirako -azaldu zien bere **aleman** mordoiloan-. Alberto Ladron Arana

8 *artzain-txakur aleman*

Txakurrak aztoratu egiten dira Lucy ikustean: dobermanak, **artzain-txakur alemanak**, ridgeback-ak, bull terrier-ak, rottweiler-ak. "Txakur zaindariak, guztiak" dio hark. Oskar Arana

Artzain-txakur alemanetan handienak haginka egiten dio armari, ahotik bitsa dariola, amorratuta. Oskar Arana

9 *behe aleman* germanikoaren aldaera, batez ere ipar Alemanian, Herbeeretan eta hego Danimarkan mintzatzen dena.

Bresten hitz egiten den frantsesa eta Bretainiakoa den jatorrizko hizkuntza ezertan ez datoz bat; Berlin, non ia-ia goi alemana bakarrik entzuten baita, **behe alemanaren** barnean sartuko da eta abar. Isabel Arrigain

10 *goi aleman*

Antzinako **goi** alemanaren aldi osoan. Isabel Arrigain

Antzinako **goi** alemanez, lehen elementua ez zen aditz elementua, izen bat baizik. Isabel Arrigain

Antzinako **goi** alemanezko idazkietan. Isabel Arrigain

Horrelako bikoteak ditugu erdiko **goi** alemanez: [...]. Isabel Arrigain

11 *judu aleman*

Amodajtarrak zeuden, Belgradoko galtzerdi-saltzaile aberats batzuk alegia, Fiumeko zapatari bat, Zarako apaiz bat, dentista bat eta bi anaia **judu alemaniar**, bata dantza-irakaslea eta bestea filatelikoa, Bernardo eta Villi izenekoak. Fernando Rey

Gero jarraian, beste bi pentsalari garrantzitsu, Simone Weilen ildo beretik datozenak gomendatzen dizkigu Azurmendi adiskideak: bat Hannah Arendt (1906-1975) **judu aleman** ikerlea, Totalitarismoaren Iturriak aztertu dituena, bestea Emmanuel Lévinas (1905-1975) pentsalari judu lituaniarra, Etika eta Infinitua idatzi duena. Piarres Xarriton

Trikinosi Moses Mendelssohn (1729-86) filosofo eta teologo **judu aleman** ospetsua zen. Xabier Olarra

Judu aleman, zibil bortxatuak, gaitzetsiekin nahasiak, kabala bagoi lerro luze bati buruz pusatzen gituzte. Michel Oronoz

12 *karta aleman* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Karta alemana karta jokoetan jokatzeko karta-sorta mota bat da. Ustez, bere jatorria XIV. mendearen erdialdean omen dago. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adenauer alemana (3); **aita alemana** (3); **aki aleman** (7); **aleman ardi** (7); **aleman ardi zakurrak** (3); **aleman armadak** (4); **aleman bat** (27); **aleman batek** (16); **aleman batekin** (5); **aleman baten** (5); **aleman bati** (3); **aleman batzuk** (3); **aleman edo** (3); **aleman eta** (26); **aleman eta frantses** (5); **aleman eta nederlanderazko** (3); **aleman haiek** (6); **aleman handi** (3); **aleman hartan** (3); **aleman hauek** (3); **aleman hil** (3); **aleman hura** (4); **aleman judu** (3); **aleman lehen** (8); **aleman lehen minixtroa** (3); **aleman lehen minixtroak** (5); **aleman modernoan** (5); **aleman onaren** (3); **aleman talde** (3); **alemana baita** (3); **alemana besterik** (3); **alemana besterik ez** (3); **alemana da** (7); **alemana edo** (6); **alemana eta** (19); **alemana eta frantsesa** (3); **alemana ez** (8); **alemana ez zen** (3); **alemana izan** (4); **alemana nintzela** (3); **alemana zela** (3); **alemana zen** (7); **alemanak bere** (3); **alemanak dira** (3); **alemanak ere** (7); **alemanak eta** (13); **alemanak ez** (15); **alemanak ez ziren** (5); **alemanak frantzian** (4); **alemanak frantzian sartu** (4); **alemanak izan** (5); **alemanak izugarri** (3); **alemanak sartu** (3); **alemanak ziren** (5); **alemanaren eta** (5); **alemanek egin** (4); **alemanek eta** (8); **alemanek ez** (19); **alemanek ez zuten** (7); **alemanek frantzia** (3); **alemanek harrapatu** (4); **alemanek preso** (4); **alemanen alde** (9); **alemanen artean** (4); **alemanen aurka** (4); **alemanen aurrean** (4); **alemanen denboran** (6); **alemanen eta** (6); **alemanen kontra** (11); **alemanentzako italierazko** (3); **alemanentzat auschwitz eta** (4); **apez alemanek** (4); **arduradun sagrario aleman** (3); **artzain aleman** (4); **baina alemana** (4); **batean alemana** (3); **beste aleman** (5); **bi aleman** (6); **da aleman** (4); **da alemanek** (3); **da alemanen** (4); **den aleman** (3); **dute aleman** (3); **edo aleman** (6); **erdi alemana** (6); **ere alemana** (3); **eta aleman** (26); **eta aleman haiek** (3); **eta alemana** (13); **eta alemanak** (21); **eta alemanak ez** (4); **eta alemanaren** (5); **eta alemanek** (12); **eta alemanek ez** (3); **eta alemanekin** (3); **eta alemanen** (15); **etxe aleman** (3); **ez zen aleman** (4); **frantsesa eta alemana** (3); **gazte aleman** (4); **hartan aleman** (3); **iñ idazle aleman** (4); **ingelesaren eta alemanaren** (3); **jokalari alemanak** (4); **judu aleman** (3); **kultura alemanaren** (3); **musika alemana** (3); **puru alemanaren** (4); **sagrario aleman** (10); **sagrario alemanek** (3); **soldadu aleman** (8); **soldadu alemanak** (11); **soldadu alemanen** (3); **zen aleman** (8); **zen alemanen** (3); **zigarro puru alemanaren** (4); **ziren aleman** (3); **ziren alemanak** (6); **zuen aleman** (4); **zuen alemanak** (4); **zuen alemanek** (5); **zuen alemanen** (5); **zure alemanak** (3); **zuten aleman** (3); **zuten alemanek** (5)

alemanez ari (5); **alemanez egiten** (6); **alemanez erantzun** (3); **alemanez ere** (8); **alemanez eta** (9); **alemanez hitz** (15); **alemanez hitz egiten** (11); **alemanez idazten** (4); **alemanez izan** (3); **alemanez mintzatu** (5); **antzinako alemanez** (4); **antzinako goi alemanez** (4); **batzuk alemanez** (3); **da alemanez** (3); **edo alemanez** (3); **eta alemanez** (27); **eta alemanezko** (10); **goi alemanez** (7); **ingelesez eta alemanez** (6); **ingelesezko eta alemanezko** (3); **nuen alemanez** (4); **zen alemanez** (4)

alemandar *izond/iz* alemaniarra.

Orain berriro Goetheren biografia llabur bat ikusten ari nintzelarik ere, hala leitzen nuen: ezpainetako musuari "euli fiña" deitzen ziola erromantiko **alemandar** honek. Patziku Perurena

Alemandarrek gerla denboran egin betoizko 'Blockhaus' gainean jartzen da. Ramuntxo Etxeberri

Errusieraz, **alemandarrei** [...] "mutuak" esan ohi zaie. Isabel Arrigain

---

alemanera ik **alemaniera**; **aleman 7**.

---

alemaniar *(ETCn **14.943** agerraldi; orobat **alemandar** g.er.)* **1** *izlag* Alemanikoa, Alemaniari dagokiona. ik **aleman**. (personez)

Gudarostearentzat lanean ari ez diren **alemaniar** emakume eta haurrak kostaldeetara atera behar dituzte, eta Groningen, Frisia eta Gueldres probintzietara eraman. Josu Zabaleta

Bere gorputz judua tauletan erakutsi du **alemaniar** gazte garbien aurrean. Ramon Etxezarreta

Alemaniar arkitektoa, 1883-1969. Bernardo Atxaga

Alemaniar jatorriko aitona-amonen gorabeherak Alsazian, **alemaniar** izan nahi eta ezinaz. Anjel Lertxundi

Immanuel Kant, Filosofia Unibertsitate germanikoetara bideratu zuen moderniaren aitapontekoa, **alemaniar** pentsalaria dugu, berak halaxe aldarrikatu zuelako. Askoren artean

Forma sinbolikoaren kontzeptua, lehen ere aurkitu duguna (ikus 3. kapitulua, III.3.3), Ernst Cassirer **alemaniar** filosofoari zor zaio. Josu Zabaleta

Ez irakurri **alemaniar** metafisikari horiek; horien filosofia mozkortu bai baina elikatzen ez duen alkohol bat bezala da. Josu Zabaleta

Horixe iruditzen zaigu hirurogeita hamar urte geroago ere: **alemaniar** artista eta intelektual belaunaldi oso bat, 1920 inguru horretan, espresionista izan zela. Josu Zabaleta

Alemaniar agintariek horrelako ibilgailuez baliatzerik uzten ez dietenak, oinez ere bai. Josu Zabaleta

Su-bonba karga handia zeramaten bi hegazkin ingeles **alemaniar** ofizialen zentroaren gain-gainean erori ziren. Josu Zabaleta

-Garai hartan **alemaniar** soldaduon kontrako neurriei buruzko zurrumurruak bolo-bolo zebiltzan. Alberto Ladron Arana

Aliatuek ez zuten Gerhard Bahr-en fedearekin zerikusirik ez zuen **alemaniar** zibilik hil Bigarren Mundu Gerran? Iñigo Aranbarri

Azken hilabete haietan elkarlanean aritu behar izan zuen **alemaniar** agente anitzekin, SD informazio zerbitzu nazikoak gehienak. Alberto Ladron Arana

Alemaniar gudarostea indarrez eta oldarrez ari zen Frantzian sartzen; frantses gudarostea ez zegoen prestatuta hari aurre egiteko. Josu Zabaleta

-Holandako **alemaniar** okupazio indarrekin bat eginda zegoen polizia taldea. Josu Zabaleta

Alemaniar eta japoniar ekoizleen mozkinen tarteen murrizteak bigundu zuen, bestalde, truke-tasen doikuntza. Koro Navarro

2 (bestelakoez)

Alemaniar hizkuntza horrela iraintzea ere! Harkaitz Cano

Handik laster sortu zen eta indartu Hitlerren alderdi nazia edo Nazional-sozialista, Versaillesen **alemaniar** aberriak jasan Diktat itsusia mendeka omen zezakeen alderdi bakarra. Piarres Xarriton

Napoleonek frantziar legearen kodetze egin berria sartu zuen bere inperioko italiar, flandriar, **alemaniar** eta poloniar lurraldeetan. Iñaki Mendiguren

Kokaleku berria erabakitzen duten bitartean, Polonian dagoen **alemaniar** enpresa batekin joint venture bat sinatuko dute. Berria - Ekonomia

Eskandinaviarren hegemonia militarrari eta merkataritzazkoari erantzunez, **alemaniar** hiriek, haiek ere lortua baitzuten beregaintasun politikoa, Baltikoko hegoalde osoan zabaldu zuten beren eragina, armen eta merkataritzaren bidez. Koro Navarro

Kokaleku berria erabakitzen duten bitartean, Polonian dagoen **alemaniar** enpresa batekin joint venture bat sinatuko dute. Berria - Ekonomia

1985eko otsailean jadanik, **alemaniar** banku zentralak (Bundesbank), epe laburreko tasak apur bat igoaz, dolarraren balioa nabarmen jaistea lortu zuen. Koro Navarro

Pimi abisatu dio; hark bere behinolako bulegoan **alemaniar** irratia sintonizatu du eta ateari giltza eman dio. Josu Zabaleta

Gerra Handiko **alemaniar** metrailadorez osatutako arma karga zeraman Rotterdameko portutik. Iban Zaldua

Ez du, bada, definizio bat eskaintzen; esan bezala, nahiago du bereizketa bat egin bi tradizioen artean eta horrela Erlijioaren Filosofia deskribatu: batek, **alemaniar** tradizioa gogorarazten du eta, besteak, ingelesa. Askoren artean

Lehen predikari dominikarra, Johannes Eckhart da, **alemaniar** Mistikaren ordezkari indartsu eta sakonena. Joan Mari Lekuona

Oroitzen naiz hirurogei urte bete berri zituela orduantxe, eta barne-medikuntzako medikua zela Columbia-Presbyterian Hospital erietxean, eta **alemaniar** azentu arin batekin hitz egiten zuela ingelesez. Oskar Arana

Brahmsen ***Alemaniar*** *Requiem bat* emango dute. Berria - Kultura

3 (izenondo gisa)

Andreas **alemaniarrak** herrikide ugari aurkitu ditu Nafarroan, Itoizko urtegiaren kontrako borrokan. Schuss, berriz, mutil **alemaniar** ile-hori bat zen, medikuntza bukatu berria zuena eta hegazkin-istripu bat izan zuena inguru haietan. Edurne Elizondo

Uda honetan kazetari **alemaniar** bat fusilatu dute, nire adiskidea zena. Koro Navarro

Obabako fabrika bateko ingeniari **alemaniarraren** alaba baitzen Victoria. Bernardo Atxaga

Sendagile **alemaniar** eta frantsesen asmakeriak dira horiek; urkatu egingo nituzke denak horregatik! hildako ofizial **alemaniar** baten Lüger-a. Jose Morales

Patruila **alemaniarrak** ez ziren bereziki kantu zaleak. Harkaitz Cano

Filosofo **alemaniar** garaikideen obrak ikasi eta ikasi aritu zen. Ander Irizar

Fiumeko zapatari bat, Zarako apaiz bat, dentista bat eta bi anaia judu **alemaniar**, bata dantza-irakaslea eta bestea filatelikoa, Bernardo eta Villi izenekoak. Fernando Rey

Kontua da Gukzovski printzearen etxaldean bazela administratzaile **alemaniar** bat, gizon gaztea bera. Jose Morales

Zerga-ordaintzale iparramerikerrek mila pintzel emango dituzte dohain zure Margolari **Alemaniar** Gazteen Ligarentzako. Ramon Etxezarreta

Berdin emazte-lapur **alemaniar** edo hari-laukote konpositore trebeak izan? Harkaitz Cano

Laburtzeko, hortaz, albait bizkorren jakinaren gainean jartzera etorri haiz, badela hegazkin armada **alemaniar** bat ni abiatzea batere zuhur bihurtzen ez duena! Josu Zabaleta

Hegazkinlari ingelesen eta **alemaniarren** arteko hegazkin borroka izugarri bat ikusi dut. Josu Zabaleta

Joan den mendearen hasierako artearen historiaren tradizio **alemaniar** handitik hartuko dugu gure lehenengo adibidea. Josu Zabaleta

Donostiako Orfeoiak eta EOSek 'Requiem **alemaniar** bat' emango dute bihar eta etzi Kursaalean. Berria - Kultura

Basileak historian zehar bizi izan duen eragin **alemaniarraz**. Anjel Lertxundi

Leihoak barrualdean zuen arasan, bi liburu, artean zabaldu ere egin ez zituenak: Ithurralderen *Pierre Topet-Etxahun* eta Gabriel Arestiren *Harrizko herri hau,* suomiera ikasteko eskuliburu **alemaniar** baten aldamenean biak. Harkaitz Cano

Oso zubi **alemaniarra** da, nolabait esatearren: altzairuzkoa, x formako trentzaduraz betea, graffitiz estalia, itxura zaharkitua duena. Harkaitz Cano

4 *iz* alemaniar herritarra.

Beste aitona, **alemaniarra**, prusiar jasanezin bat, nazia jaiotzez, alemaniar guztiak bezala, nahiz eta nazien aurkakoa zela esanez hil, hori ere alemaniar guztiak bezala. Karlos Zabala

Alemaniarrak herri-espiritu delakoaren bila hasi zirenean, Luterok Bibliari emandako interpretazioa hartu zuten aintzat, eta beren arkitektura, beren literatura.Beroki zahar bat

erantziko balute bezala erantzi dute **alemaniarrek** etsipena. Bernardo Atxaga

Italia iparralde osoa **alemaniarrek** okupatu dute. Josu Zabaleta

Norbaitek gaztigua eman zien **alemaniarrei**, eta **alemaniarrek** preso hartu zituzten. Fernando Rey

Oso litekeena da hau eta hau bezalako beste hainbat arimaren mugimendu azpimarragarri izatea, sublimazioa zela medio, Fray Rogeirok zaldun **alemaniarraren** esan-eginak horren zehazki kontatu izanaren arrazoia. Jon Alonso

Mundu osoan ez da **alemaniarren** eta juduen artekoa bezalako etsaitasunik. Josu Zabaleta

Frantses gobernu sozialistak adierazitako suspertzeko desioari **alemaniarren** inflazioaren kontrako ardura kontrajarri zitzaion. Koro Navarro

Alemaniarren okupazioaren denboran. Jokin Urain

Astelehenean, milaka **alemaniar** atera ziren kalera gobernu gorri-berdearen egitasmoa salatzeko. Berria - Mundua

Baina zergatik tiro egin behar zioat **alemaniar** bati? Mirentxu Larrañaga

Gizaje bikainak **alemaniar** hauek; ni ere herri horretakoa naizela pentsatzea ere! Josu Zabaleta

"**Alemaniar** guztien Führer"-ak zaurituta dauden soldaduekin hitz egin du. Josu Zabaleta

Gero eta **alemaniar** gehiago daude gobernu gorri-berdearen egitasmoaren aurka. Berria - Mundua

Alemaniar bat jarri behar izan dute hautatzaile, taldeari diziplina eta antolakuntza emateko. Berria - Kirola

Habermas ilustratu unibertsala baita: **alemaniar** postmetafisikoa baina ilustratua, azken buruan. Askoren artean

Eta orain gure negozioa hain sendo dagoenean, zure ume **alemaniar** mardulak eraman beharra zeneukan beren herrian hezi zitezen. Ramon Etxezarreta

Oraindik ez duk hire lana ikasi, **alemaniar** alfer horrek? Jose Morales

Alemaniar madarikatuek hain luzaro zapaldu gaituzte, eta eduki gaituzte labana eztarrian jarrita, non adiskideak eta salbamena gauza bera baitira guretzat. Josu Zabaleta

5 alemaniar hizkuntza.

Alemaniarrez tutik ez baitzekien, keinuka ulertarazi zuen bere eskaera. Eneko Bidegain

6 ***judu alemaniar***

Urteak ziren Turin Alemaniatik ihesi joandako **judu alemaniarrez** betea zegoela. Fernando Rey

Neskak iheslari **judu alemaniarrekin** elkartzen ziren, eta batzuetan haiekin konpartitzen zituzten beren aitak prestatu eta, eltze beltz eta zabaletan, sukaldean utzi ohi zituen jaki ilun haiek. Fernando Rey

Amodajtarrak zeuden, Belgradoko galtzerdi-saltzaile aberats batzuk alegia, Fiumeko zapatari bat, Zarako apaiz bat, dentista bat eta bi anaia **judu alemaniar**, bata dantza-irakaslea eta bestea filatelikoa, Bernardo eta Villi izenekoak. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **alemaniar bat** (17); **alemaniar batek** (10); **alemaniar batekin** (4); **alemaniar baten** (10); **alemaniar bati** (3); **alemaniar eta** (10); **alemaniar haren** (3); **alemaniar jatorriko** (3); **alemaniar requiem** (3); **alemaniar requiem bat** (3); **brahmsen alemaniar** (3); **brahmsen alemaniar requiem** (3); **eta alemaniar** (11); **hartan alemaniar** (3); **margolari alemaniar** (3); **neska alemaniar** (3); **soldadu alemaniar** (4); **zen alemaniar** (3); **zuen alemaniar** (5)
>
> **alemaniarra da** (7); **alemaniarra eta** (16); **alemaniarra ez** (3); **alemaniarra gerolsteiner** (6); **alemaniarra izan** (8); **alemaniarra izan zen** (6); **alemaniarra izango** (5); **alemaniarra izango da** (4); **alemaniarra zela** (3); **alemaniarra zen** (5); **alemaniarrak dira** (5); **alemaniarrak eta** (8); **alemaniarrak ez** (10); **alemaniarrak gerolsteiner** (3); **alemaniarrak irabazi** (12); **alemaniarrak irabazi du** (6); **alemaniarrak irabazi zuen** (6); **alemaniarrak izan** (3); **alemaniarrak t** (6); **alemaniarrak t mobile** (6); **alemaniarraren aurka** (3); **alemaniarrari t mobile** (5); **alemaniarrek aurrera** (3); **alemaniarrek ere** (3); **alemaniarrek eta** (3); **alemaniarrek ez** (3); **alemaniarrek frantzia** (3); **alemaniarrek irabazi** (3); **alemaniarrek preso** (4); **alemaniarrek preso hartu** (3); **alemaniarren artean** (3); **alemaniarren aurka** (3); **alemaniarren esku** (3); **alemaniarren eta** (3); **alemaniarren kontra** (4); **alemaniarren okupazioan** (3); **artista alemaniarrak** (5); **baina alemaniarrak** (5); **banku alemaniarrak** (3); **danilo hondo alemaniarra** (4); **du alemaniarrak** (6); **du alemaniarren** (3); **erik zabel alemaniarra** (5); **erik zabel alemaniarrari** (4); **esan zuen alemaniarrak** (4); **eta alemaniarra** (6); **eta alemaniarrak** (4); **eta alemaniarrek** (8); **eta alemaniarren** (7); **filosofo alemaniarrak** (3); **gidari alemaniarrak** (4); **hegazkin alemaniarrak** (3); **hondo alemaniarra** (5); **idazle alemaniarra** (3); **idazle alemaniarrak** (3); **idealismo alemaniarra** (5); **jaka alemaniarra** (3); **jens voigt alemaniarra** (3); **schumacher alemaniarrak** (3); **stefan schumacher alemaniarrak** (3); **talde alemaniarrak** (4); **talde alemaniarraren** (3); **txirrindulari alemaniarra** (3); **txirrindulari alemaniarrak** (7); **voigt alemaniarra** (3); **zabel alemaniarra** (5); **zabel alemaniarrari** (5); **zabel alemaniarrari t** (3); **zinemagile alemaniarra** (3); **ziren alemaniarren** (3); **zuen alemaniarrak** (6); **zuten alemaniarrek** (4)

---

alemaniartasun *iz* alemaniar izateko nolakotasuna.

Lurraldetasunak deusezta ote lezake *Gesammelte Schriftenen* egilearen **alemaniartasuna**? Alabaina, Kant ez litzateke izango alemaniar segurua, ez bere jardunean erabili zuen hizkuntzagatik ez jaio eta bizi izan zen tokiagatik. Askoren artean

---

alemaniera *(orobat **alemanera** g.er.)* **1** *iz* aleman hizkuntza. ik **aleman 7**.

Descartesengan frantses mintzaira ari da; **alemanera** Kant eta Hegelengan, eta ingelesa Hume eta Stuart Mill-en baitan. Joxe Azurmendi

Makina bat milioi pertsona bada munduan **alemaniera** batuaz mintzo dena. Joxe Austin Arrieta

Pena da bere **alemanierak** hobera ez egitea, baina, hala ere, mundu guztia liluratzen du. Ramon Etxezarreta

Nire **alemaniera** arraroa (edo, okerrago, susmagarria) gerta zitekeelako kezka zebilkidan gogoan. Alberto Ladron Arana

Orduz kanpo, itzulpenak ere egiten zituen frantsesera eta **alemanierara**. Hasier Etxeberria

Bernabe alemana, predikari aparta lombardieraz eta **alemanieraz**. Askoren artean

Nik **alemanieraz** ez dut tutik ulertzen, baina Ritak bai. Hasier Etxeberria

Alemanieraz idatzitako ohar franko ere ikusi zuen, paragrafoen ertzetan. Alberto Ladron Arana

Wagnerren 'Lohengrin' opera **alemanieraz** emango du OLBEk . Berria - Kultura

Oswiecim, **alemanieraz**, Auschwitz da. Iban Zaldua

Alemaneraz ba al dakizu, jauna? Josu Zabaleta

Alemanierazko hitza, konponbidea esan nahi duena, naziek judutarren aurka erabakitako "azken soluzioa" dela-eta ezagun bihurtua. Oskar Arana

Haserretu ez dadin **alemanerazko** otoitz batzuk irakurri ditut. Josu Zabaleta

Horrek erabat haserretu du Van Daan andrea, eta nederlandera-**alemanerazko** eta aleman-nederlanderazko hitz eder pila bat txertatuz jarraitu du bere erretolika zoragarria. Josu Zabaleta

Inoiz ez diezu entzungo errusierazko hitz bat bera ere taxuz ahoskaturik; ugari erabiltzen dituzte, ordea, frantsesezkoak, **alemanierazkoak** eta ingelesezkoak. Jose Morales

2 ***behe alemaniera*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Kaxubierak, polonierak bezala, **behe alemanieratik** eta alemanieratik datozen hainbat mailegu ditu. Beste mailegu asko hizkuntza baltikoak hizkuntza baltikoetatik datoz, besteak beste polonieratik eta errusieratik. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **alemaniera eta** (4); **alemanieraz hitz egiten** (3); **eta alemanieraz** (6)

---

alemanieradun *iz* alemanierazko hiztuna.

Belgikako **Alemanieradunen** Alderdia. Berria - Euskal Herria

alemantasun *iz* alemana izateko nolakotasuna.

Pentsatzen nuen nik: eten genezake gure jardun alemana eta frantsesez hasi, baina gure **alemantasuna** itota geldituko litzateke; oxigenorik gabe. Anjel Lertxundi

"Jendez gainezka zegoen plaza, bertako gereziondoak nola, halaxe ari da loratzen **alemantasuna"**, idatzi nuen halako batean. Anjel Lertxundi

---

alemantxo *izond adkor* alemana.

Seko mozkortuta ez gintuan gehiago egongo, botoiak algaraka lehertzeko zorian, baina gure azkeneko barrea ari gintuan egiten, eta ziri ederra sartu genioan gure **alemantxoari**, maltzurkeriaz, sabeletik, eskutik kenduta, hirurogeita hamabi ordutarako anoak harrapatu. Josu Zabaleta

---

alemanzale *izond/iz*

Batzuk frantses egon nahi, bertze batzu **alemanzale** direlakoan onartzen dute aldakuntza. Herria

1912an, Abbadie horren beraren adiskide eta ikasleak jazartzen zaizkio, batere funtsik gabe, Baionako kazetetan, aita Resurreccion Azkue euskaltzale bizkaitarrari, baizik eta jaun hau **"alemanzale"** bihurtua dela. Piarres Xarriton

Hogeita bat urte zituela, 1914ko gerra hastean, **alemanzale** porrokatua izaki eta, boluntario joan zen frontera. Berria - Kultura

---

alena ik **alaen**.

---

alere ik **halere**.

---

alergeniko *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi) izond* alergia eragiten duena.

Hori guztia dela eta, adin-talde horren elikadura zaindu egin behar da, elikagai **alergeniko** batzuen kontsumoa galaraziz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, jaki **alergeniko** nagusiak hauek dira: esnea, arrautzak, arraina, krustazeoak, intxaurrak eta kakahueteak, garia eta soja. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tinte bejetala da henna, eta eragin **alergeniko** urria duen arren, rinitis edo asma bronkiala eta kontaktuko dermatitis alergikoa (DAC) eragin izan du batzuetan. ETC-prentsa

Katuek gizakiongan alergia eragiten dute? Ba katuaren eragile **alergenikoa** erauzi. ETC-prentsa

Mimosa harroaren loretza horiaren usain **alergenikoa** zimeltzeaz bat elorri beltzen, udareondo goiztiarren, magnolia soulangeanoen, irasagarrondo japoniarren, aranondo finen, sahats tenteen eta lili ubelen loreak gogoz zabaltzen ari dira. ETC-prentsa

Eta zer da, bada, alergenoekin egindako immunoterapia? Pertsona alergiko bati pixkanaka gehituz doazen txerto **alergeniko** baten kopuruak ematen joatea, alergeno sortzailearen esposizioari lotuak dauden sintomak hobetzen dituen dosia lortu arte. ETC-prentsa

Kutsadura atmosferikoak indartu edo areagotu egiten du lore-hautsaren eragin **alergenikoa**. ETC-prentsa

Bestalde, adituek diotenez immunoterapia (txertaketa **alergenikoa**, alegia) da gaixotasun alergikoaren garapen naturala aldarazi dezakeen tratamendu etiologiko bakarra. ETC-prentsa

Loiuko Lauro ikastolakoek erreakzio kimikoen bidez elikagaien osagai **alergenikoa** detektatzen duen egitasmoa aurkeztu zioten FLLko epaimahaiari eta Eneko Atxa sukaldariari. ETC-prentsa

Normala den moduan, ale arrak askoz ere **alergenikoagoak** dira, hauek baitira polena ekoizteaz arduratzen direnak, baina, hala ere, esan beharra dago, nahiz eta beste maila bateko kalteak sortu, emeak ere **alergenikoak** direla, polena harrapatzen baitute ugalketa sexuala burutzeko. ETC-entziklopedia

Zelula immunologikoak proteina **alergenikoak** topatzen dituztenean, IgE antigorputzak sortzen dira. [...] IgE antigorputzek proteina **alergenikoak** kaltegarriak balira bezala identifikatzen ditu eta erreakzio alergikoa abiarazten dute. ETC-entziklopedia

---

alergeno *(corpusean ez dago; ETCn **308** agerraldi) iz* alergia eragiten duen gaia.

Alergeno bat aldez aurretik substantzia horrekin harremanetan egon diren pertsona sentikorretan hipersentikortasunaren erreakzio eragin dezakeen substantzia da. ETC-entziklopedia

Alergeno batengandik urrundu izan banintz bezala. ETC-literatura, saiakera

Produktuekiko kontatu jarraituaren bidez, pertsona horiek immunizatu egiten dira, alergologo batek **alergeno**-dosi txikiak behin eta berriz injektatuz pazienteak immunizatzen dituen bezala. ETC-literatura, saiakera

Joan zen artikuluan ikusi genuen bezala, hotzak gure gorputza ahuldu egiten du, eta gure etxeetako aireztapen eskasari esker, alergiak sor ditzaketen substantziak (**alergenoak** esaten zaie horrelakoei) ugaldu egiten dira giro itxi eta hezeetan: lizunak, akaroak, etab. ETC-prentsa

Baina txostenean beste berritasun bat agertzen da: etorkinek **alergeno** berriak ekarri dituzte. ETC-prentsa

Hori dela eta, **alergenoak** saihesteko ahalegina egin arren, askotan alergia sortzen da, eta orduan, botikak hartu behar izaten dira. ETC-prentsa

Pertsona alergikoak janari horrekin hurrengo kontaktua izaten duenean, E Ig-ak janari horren **alergenoak** harrapatu edo atzitu egiten ditu. ETC-prentsa

Janariek eragindako alergiez aritu ginen aurrekoan: alergiak noiz eta nola agertzen diren, zein sintomarekin, janarien **alergenoak** nolakoak diren... ETC-prentsa

Gorputzeko erreakzio anormal hori eragiten duten substantziei **alergeno** esaten diegu, eta askotarikoak dira. ETC-prentsa

Eta gure elikagaien kalitatea ziurtatzen duten inspekzio sanitario eta **alergenoen** gaineko ziurtagiria ere bai; hori berria da, gainera. ETC-prentsa

Nekazaritzan bioteknologia erabiltzearen aurkakoek beste espezie batzuetatik sartutako **alergenoak** espresatzen dituzten laboreak nahi gabe ekoizteko arriskua aipatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erreakzio alergikoen aniztasuna **alergeno** eta mastozitoek askatzen dituzten osagaien elkarreraginaren ondorioa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antigenoen (**alergenoen**) kontrako erantzun humoralaren ondorioz agertzen da eta E inmunoglobulinek (Ig) sortzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mastozitoak kitzikatzen dituen faktore mota bat **alergenoak** dira, mastozitoak kitzikatzean erreakzio alergikoak sortzen dituztenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

alergia 1 *iz* substantzia jakin bati buruz gorputzak agertzen duen erreakzio desegokia.

Pertsona gehienentzat normalak diren eragileen aurrean gorputzak agertzen duen gehiegizko sentikortasuna izatea da **alergia**. Berria - Gaiak

Ume askok, gainera, botikak hartu behar izan dituzte eta gelara mozorroarekin joan, hautsari **alergia** diotelako. Berria - Euskal Herria

Alergia baten sintomak izan zitezkeela otu zitzaidan, baina ez naiz arlo horretan aditua eta artega samar jarri nintzen. Iban Zaldua

Botikak hartu beharra dauka gaixoak, kortikoideak eta beste, hantura galarazteko, eta **alergia** eragin diote. Imanol Zurutuza

Sendagaiek eragindako **alergia**, idatziko du alergologoak, analisien emaitzak ikusi ondoren. Imanol Zurutuza

Zein ontzi diren kantzerigenoak, nolakoak ezin diren berrerabili, zerk sortzen duen **alergia**, zerk intolerantzia, zerk burukomin, azkura edo nekea, [...]. Edorta Agirre

Segurola ospitaletik irten eta egun batzuetara berriro ingresatu behar izan zuten **alergia** batengatik. Berria - Euskal Herria

AEBetako **Alergia** eta Gaitz Kutsagarrien zuzendariak, Anthony Faucik, pandemia gertatzeko arriskua "oso handia" dela esan zuen. Berria - Gaiak

Gizon gaztea asaldaturik zegoen, lehenago ez baitzuen inoiz korderik galdu, eta inoiz ez baitzioten nafarreri zuria eta lorautsak eragindako **alergia** txiki bat baino eritasun larriagorik diagnostikatu. Oskar Arana

Hiruretan lantzen dituzte erreuma eta arnasketa arazoak, estres arazoekin batera, baina badituzte beren ñabardunak: Fiteron eta Kanbon asma eta **alergia** kasuetan egindako lanagatik ere ezagutarazi dira neurri batean, eta Zestoan gibelaren, besikularen eta azalarenetan. Berria - Euskal Herria

Txirrindulari azpeitiarrak Itzulia utzi du, **alergia** arazoengatik; pena, ilusioz gainezka baitzegoen. Berria - Kirola

Alergia aurrekariak zituzten sendietan jaiotako 865 haurri jarraipena egin zieten Municheko ikertzailek. Berria - Gaiak

Produktu batzuek (glutena, esnea, kakahuetea, etab.), pertsona zenbaitengan intolerantzia eta **alergiak** sorrarazten dituzten arren, mesedegarri dira gizakiarentzat oro har edo gizaki askorentzat, bereziki. Edorta Agirre

Alergiak besoetan eragindako urradurak ere "lehortu" zaizkiola. Berria - Kirola

Teoria horren arabera, haurtzaroan infekzio asko izaten dituzten haurrek **alergiak** izateko arrisku txikiagoa dute. Berria - Gaiak

Zesarearen bidez jaiotako haurrek **alergiak** garatzeko arrisku handiagoa dute. Berria - Gaiak

Higienearen Teoriaren arabera, baina, larregizko higienea **alergiaren** faktore eragile bat da. Berria - Gaiak

Mendebaldeko herrietan lau umetik batek **alergiaren** bat du. Berria - Gaiak

2 irud/hed

-Marjoriek **alergia** die erleei -esan zuen Melek-. Koro Navarro

Orain **alergia** zion lanari, gorroto bezeroei, higuin ikaragarria bankariei eta enpresa-gizonei, aspaldi utzia zion klub pribatura joateari eta etxetik ateratzen zen aldi bakanetan metro-geltokien anonimatuan bilatzen zuen babesa. Patxi Iturritegi

Carlos Gili entzun nion, hitzaldi batean, urtean behin nahitaez antzerkira joan behar izatea jarriko lukeela, ikusteko ez duela ez **alergiarik** ez gaixotasunik sortzen; alderantziz, oso ona dela osasunerako. Berria - Kultura

Gaitz mentalek eragiten diguten hozkia izan liteke, gazteek zaharrengana izaten dugun erruki-falta, edozein gaixotegik sorrarazten dituen tristura eta **alergia**. Xabier Mendiguren Elizegi

-Alergia? Zeini? Zeri? Nori? Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alergia eta** (5); **alergiak eta** (7); **alergiaren bat** (4); **eta alergia** (6); **eta alergiak** (3)

---

alergiko **1** *izond* alergiari dagokiona; alergia duena.

", bere ondoan esertzen den emakume **alergikoari**. Bernardo Atxaga

Txertoa jasotzen duten ume guztien artean, batzuek erreakzio **alergikoa** erakutsiko dute, baina txerto horiei esker ezin ditugu ahaztu salbatu diren hainbat eta hainbat bizitza. Berria - Gaiak

Datu bat: umeen %15ek dute rinitis **alergikoa**. Berria - Gaiak

Baina umea **alergikoa** duk, dezente **alergikoa**; botiketan diru dezente gastatu beharko dik neskak: lortzen erraza ez den dirua. Iban Zaldua

Ez al zenekien bada **alergikoa** nintzela? Joxean Sagaztizabal

Bitxia ez al da, "esentzialismoari" **alergikoak** ziren irakurleek hau guztia hain atsegin izatea? Joxe Azurmendi

Tabakoaren inguruan idatzitako guztia bildu, eta *Alergiaren eta asma* ***alergikoaren*** *prebentzioa* izenburuko txostena egin dugu guk. Berria - Gaiak

2 ***ekzema alergiko*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***3*** *agerraldi)*

Dermatitis atopikoa edo **ekzema alergikoa** bularreko ahurretan agertzen diren lesio eritematoso-besikulosoak da, oso pruriginosoak, batez ere aurpegian, larruazaleko tolesetan kokatuak (ukondoan, belaunatzean, garondoan, belarrien atzealdean) eta heda daitezkeenak. ETC-entziklopedia

3 ***erreakzio alergiko***

Txertoa jasotzen duten ume guztien artean, batzuek **erreakzio alergikoa** erakutsiko dute, baina txerto horiei esker ezin ditugu ahaztu salbatu diren hainbat eta hainbat bizitza. Berria - Gaiak

4 ***errinitis alergiko***

Asma eta **errinitis alergikoa** dira ezagunenak. Berria - Gaiak

---

alergologo **1** *iz* eritasun alergikoetan espezialista den sendagilea.

Sendagaiek eragindako alergia, idatziko du **alergologoak**, analisien emaitzak ikusi ondoren. Imanol Zurutuza

Alergologoak esandakoa zorrotz bete behar da. Berria - Gaiak

2 *izond* eritasun alergikoetan espezialista dena.

Ospitalean lagun **alergologoa** daukat, oso ona, eta hari deitu nion; semea eramateko esan zidan, tarte bat egingo zidala goiz horretan bertan. Iban Zaldua

---

alero *iz* saskibaloi jokalaria, kantxako bazterretatik aritzen dena.

Robert Tomaszek poloniar hegal pibota eta Roberto Gabini **alero** argentinarra fitxatu ditu Tau Baskoniak. Berria - Kirola

---

aleroi *(orobat* ***aileroi****)* *iz* zenbait automobilen atzeko aldeko zati irtena.

Adi lehen bihurguneari, **aleroiren** batek txikituta amaituko baitu. Berria - Kirola

Horrela, autoaren atzealdean bolumen libre handiak bilatu dituzte, atzeko **aleroi** nagusiak ahalik eta aire garbiena jaso dezan. Berria - Kirola

Ez da aldaketa bakarra: karrozeria, atzerako ispilua, **aileroiak**, airea hartzeko tokia, hozte sistema... dena da berria. Berria - Kirola

---

alerta **1** *iz* adi egon behar den egoera.

Horri deitzen diogu guk **alerta** goiztiarreko sistema. Berria - Mundua

Sailburuordearen esanetan, horiek protokolo zehatz bati jarraituz, sail ezberdinen koordinazioari eutsiko liokete **alertaren** bat egonez gero eta segurtasun planak abiaraziko lituzkete. Berria - Euskal Herria

Belgikan **alerta** piztu zuen atzo hilda agertu zen beltxarga batek. Berria - Gaiak

Danubioaren maila igoerak **alerta** eragin zuen Errumaniako hegoaldeko 100 bat hiri eta herritan. Berria - Mundua

Beherako kasu asko agertu direla eta, **alerta** dekretatu du El Salvadorko Gobernuak. Berria - Gaiak

Hiru egunez zehaztutako mugak gainditzen direnean, gutxienekoak eta gehienezkoak, larrialdietarako **alerta** martxan jarriko da. Berria - Harian

Baina **alerta** alarma bihurtu da, eta hegaztiak hazten ari diren pertsonak ari dira horren ondorioak jasaten. Berria - Gaiak

New Yorketik Washingtonera zihoan hegazkin bat desbideratu dute **alertagatik**. Berria - Mundua

Israelgo Armada eta Polizia **alertan** izan ziren atzo Israelen zein Zisjordanian. Berria - Mundua

Segurtasun indarretako 370.000 kide **alertan** daude. Berria - Mundua

Etxe Zuriak **alertan** jarri ditu finantza guneak ustezko eraso mehatxuengatik. Berria - Mundua

Beste batek lortu zuen Kelkit ibaiko urlasterretatik igerika irtetea, eta berak zuen **alerta** eman. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Orain berriro ere hegazti kutsatuak agertu direla eta, **"alerta** gorria" deitu dute Pakistango agintariek. Berria - Gaiak

EZLNk **"alerta** gorria" ezarri eta Chiapasen bildu ditu zapatistak. Berria - Harian

Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak egunotan ezarritako **alerta** laranja egoerarekin. Berria - Mundua

Pedro Solbes Espainiako Ekonomia ministroaren iritzi, Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak ekainean egingo direnez, "arrazoi politikoak" lehenetsi ziren atzo eta, beraz, **"alerta** azkarra" ezartzeko irizpideak berregokitu egin ziren. Berria - Ekonomia

Abeltzaintzako profesionalentzat **alerta** orokorra esan nahi du honek. Berria - Harian

Birus eta Segurtasun Informatikoari buruzko **Alerta** Goiztiarreko Zentroak birusaren aurka egin ahal izateko zenabait programa eskaintzen ditu bere web orrian. Berria - Gaiak

Gezurrezko **alerta** berriro! Josu Zabaleta

Fitxa horiek bete dituztenekin harremanetan sartuko dira zerbitzu sozialak, "Canicule plana"ren bigarren graduko **alerta** prefetak finkatzen duen puntutik. Herria

3 (hitz elkartuetan)

Eroritako bi airekoak radar pantailetatik desagertu zirela adierazi zen, Sibir Airlinesko hegazginaren kasuan, eta tripulazioak **alerta** seinale bat igorri zuen. Berria - Mundua

Hasieran, **alerta** mezu hori hegazkinean bahiketa bat gertatu zen seinalea zela aipatu bazen ere, Sibir konpainiako arduradunek zehaztu zuten geroago galbide egoera batez abisatzekoa zela. Berria - Mundua

Indiako Ozeanoan 'tsunami'-ak antzemateko **alerta** sistema ezartzea hitzartu dute nazioarteko agintariek. Berria - Harian

Iaz Ozeano Indikoan halako **alerta** sistemak jartzeko proposamenek oihartzun eskasa izan zuten. Berria - Mundua

Europako estatu gehienetako **alerta** mailak gora egin zuela jakinarazi zuen Giuseppe Pisanu Italiako Barne ministroak atzo. Berria - Harian

Etxe Zuriak igandean **alerta** maila altua ezarri zuen Washington eta New Yorken. Berria - Mundua

Londresko atentatuen eraginez, **alerta** mailetan bigarrena ezarri du Estatu Batuetako Gobernuak herrialde osoko metro, geltoki, autobus eta errepideetan. Berria - Harian

"Lagun iezaguzu terrorismoa gailentzen" zioen, Madrilgo erasoaren ondoren, Erresuma Batuan hasiera eman zioten **alerta** kanpaina batek. Berria - Harian

Alerta plana jarri dute martxan Irlandak, Erresuma Batuak, Belgikak eta Frantziak. Berria - Gaiak

Peter arin altxatu zen, txakur bat bezain bizi, eta **alerta** oihu batekin beste denak esnatu zituen. Julen Gabiria

Stockholmeko Konferentziaren ostean ere **alerta** ahotsek berean jarraitzen zuten. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Otsail egun batean, kutsadura **alertan** eta otsoaren hotzarekin, jelan irrista egin eta, besoa apurtu zuen. Pablo Sastre

Alerta eta segurtasun neurriak abian jartzeko iragarpena. Berria - Mundua

Hugo Chavezek presidente jarraituko duen edo ez erabakitzeko erreferendumerako 15 egun falta direla, nagusi dira indarkeria **alertak**. Berria - Mundua

4 (adizlagun gisa)

Alerta daude denak. Pako Aristi

5 ***alerta egoera***

Zer ote, zer ote... eta ez du, bada, itsuaren larruzko alportxa ikusten! Oh, fuck! **Alerta egoera**. Patxi Iturritegi

Hala, **alerta-egoera** ezarri dute zenbait herrialdek. Berria - Gaiak

Espainiako Babes Zibilerako Zuzendaritzak **alerta egoera** indarrean jarri du Hego Euskal Herrian. Berria - Euskal Herria

Atzo euria egiteari utzi zion arren, uharteko agintariek **alerta egoera** mantentzea erabaki zuten. Berria - Mundua

Etxe Zuriak lehengo astean, **alerta egoera** maila altuenera igo zuen Washingtongo eta New Yorkeko finantza guneetan, talde terroristak egin zitzakeen atentatuen beldurrez. Berria - Mundua

Iazko planarekin alderatuz, beste **alerta egoera** bat bada aurten, laranja alegia. Berria - Harian

Georgian, berriz, **alerta egoeran** daude. Berria - Gaiak

Larunbataz geroztik, **alerta egoeran** da errepideetako larrialdi zerbitzua. Berria - Harian

Ostatuko pantailan, larru jotze gordinezko bideo haragitsuak ene borondatearen aurka ikus nitzakeen bat-batean abiatzen, Malibuko itsas ertzetan filmatuak segur aski, hondartza **alerta egoeran** ez zenean behintzat. Itxaro Borda

Camarines, Aurora eta Quezon probintziak iragango dituela aurreikusten da eta **alerta egoeran** jarri dira. Berria - Mundua

Udan beroarengandik babesteko aholkuak emanen dira eta ministerioak erabakiz gero, **alerta egoeraren** informazioa noiznahiu emango da. Berria - Euskal Herria

Espainiako, autonomi erkidegoetako eta tokian tokiko agintariek krisi kabinete bat eratuko dute, eta **alerta egoeraren** arabera, garraiobideak edo jomuga izan daitezkeen lekuak babesteko plan bat ezarri beharko du. Berria - Harian

Osasun Ministroak **alerta egoeratik** ekintzetara pasatzeko eskatuko dio Larrialdi Batzordeari. Berria - Euskal Herria

6 ***alerta jo*** *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Hala, bada, geure harpidedunei **alerta jotzen** diegu, beren uste onean ezustean harrapa ez ditzaten. ETC-literatura, saiakera

Zutitu, bere onera ekartzen saiatu, bere txamarrarekin estali, eta txistu egiten du grina betean, **alerta jo** eta laguntza etor dadila eskatzeko. ETC-literatura, saiakera

Alerta jo dute. ETC-literatura, saiakera

Nik **alerta jo** orduko, hanka egin zuen tximistak bezala, mamba berde bat bezain arin. ETC-literatura, saiakera

Ziurrenik, biktimak -18 urte eta jatorriz Madrilgoa izanik- ez zezan modu azkarrean **alerta jo**. ETC-literatura, saiakera

Kolonbia ondoko herrialdeetako agintariek **alerta jo** dute, baita beren babesle Estatu Batuen interesen menpe egoteari ezer txarrik ikusten ez diotenek ere. ETC-prentsa

Erradioaktibitatea neurtzen dituzten tresnek **alerta jo** zuten hiru aldiz, baina hondakindegiko zuzendaritzak erabaki zuen bazter batean gordetzea, arriskurik ez dagoela azalduz. ETC-prentsa

Arratsaldean izan zen itsasgora, eta Bilbon **alerta jo** zuen Udalak. ETC-prentsa

Oraingoz, ordea, ez dira iritsi **alerta jotzeko** adinako altuerara. ETC-prentsa

Ikerketa egiten duen IFFN International Forest Fire News buletinak **alerta jo** zuen 21 orrialdeko txosten mamitsuan: "Portugaleko-2003ko-mendietako-suteen-erro-sakonak". ETC-prentsa

Garai latzak zetozak, abisatzen diat: klimak **alerta jo** dik, gazte. ETC-prentsa

7 ***aurre alerta*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Aurrealerta edo **aurre alerta** hondamendi bat gertatzeko arriskuaren berri izaten denean, hura gertatu baino lehen agintari eskudunek ezartzen duten lehenengo arrisku egoera da. ETC-entziklopedia

Edonola ere, **aurre alertak** iraun bitartean Foruzaingoak, Errepideak Gordetzeko Kontrol Zentroak eta Nafarroako Larrialdien Agentziak errepide sarea bereziki begiratuko dute. ETC-prentsa

Ibaien emaria ikusita, **aurre alerta** egoeran izan dira Nafarroan. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alerta egoera (59); **alerta egoera ezarri** (15); **alerta egoeran** (30); **alerta egoeran dago** (3); **alerta egoeran daude** (5); **alerta egoeran jarri** (6); **alerta goiztiarreko** (3); **alerta**

gorena (3); **alerta gorria** (12); **alerta gorria ezarri** (6); **alerta maila** (5); **alerta sistema** (4); **da alerta** (3); **ere alerta** (3); **eta alerta** (12); **eta alerta egoera** (3); **gobernuak alerta** (3); **zuzendaritzak alerta egoera** (3)

---

alertatu, alerta(tu), alertatzen da *ad* erne jarrarazi, erne jarri.

Zenbat aldiz ez ote nion kontatu, behin, lagun baten etxeko txakurrak aztaletan haginka egin, erietxera eraman, eta tetanoaren aurkako indizioa ipini zidatenekoa; edo hondartzako beste hura, Gurutze Gorrikoek, nire estuasunaz **alertaturik**, bozgorailuetatik jendea mugiarazi, eta erdi itota uretatik atera nindutenekoa. Pedro Alberdi

---

alertze **1** *iz* laritza, pinu zuria *(Larix decidua, Larix eu.).*

Alertzea, berriz, zeina Po ibaiaren ertzetako eta itsaso Adriatikoaren ertzetako herritarrek bakarrik ezagutzen duten, bere zukuaren mikaztasun garratzarengatik pipirik eta zomorrorik ez hartzeaz gainera, suarekin ere ez da pizten, eta bera bakarrik berez ez da erretzen, ez bada, harria balitz bezala, karea egiteko. Santiago Iruretagoiena

Hara-hona ibiltzen zen ordoki latzean, **alertzez** eta urkiz beteriko sastraketan, pinudietan, lakioak eta segadak ipiniz, ehiza xeheari eskopetaz segika, ehiza larria noiz agertuko zelatan. Karlos Zabala

Han **alertzeek** arku bat marrazten zuten, bide nagusiak haren sokarena egiten zuela. Karlos Zabala

Une hartan, zuziak itzali ziren, osorik ahiturik, eta iluntasuna beltz samarra zen artean, **alertzeen** aterpean, behinik behin. Karlos Zabala

Handik gutxira, Mikel Strogoff, zaldia uhaletik herrestan eramanez, **alertzezko** baso txiki batera iritsi zen. Karlos Zabala

Alertze multzo baten atzean ipini orduko, argi zirriborrotsu bat agertu zen. Karlos Zabala

2 ***alertze europar*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Suitzako Alpeetako klima gogorrean alertzeak ongi hazten zirela ikusita, alertzeak ekartzea erabaki zen, baina erabili zirenak **alertze europarrak** izan ordez, japoniarrak ziren, eta hauek ez zuten hain ongi jasaten hotza, ondorioz landaketen porrota ekarriz. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 ***alertze japoniar*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Azken urteotan espezie berri ugari ikusi ditugu gure basoetan, beti ere produkzio azkarra lortzeko helburuarekin landatutakoak: intsignis pinua, larizio pinua, makala, douglas izeia, haritz amerikarra edo **alertze japoniarrak** ... ETC-prentsa

Espezie aloktono hauek daude: pinu insignis amerikarra, **alertze japoniarra**, lawson altzifrea, eta abar. Indiako gaztainondoa ere asko landatu da Euskal Herrian. ETC-prentsa

4 ***japoniar alertze*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Japoniar laritza edo **japoniar alertzea** ("Larix kaempferi"), "Laritz Larix" generoko espeziea da, "Pinazeo Pinaceae" familiakoa. ETC-entziklopedia

---

aleta *iz* gomazko kirol oinetakoa, igerilariak eta murgilariak uretan erabiltzen dutena

Ez zituen maite Tomen lehengusuak, haiek bai zirela señoritoak, gure artera azaltzen ziren bakanetan **aletak** jantzita egiten zuten igeri, bermudak erabiltzen zituzten. Koldo Izagirre

---

aletegi *iz* laboreen alea gordetzeko tokia.

Pippinek Pelennor osoa bere aurrean hedatzen zela ikusi zuen, urruntasunean etxalde eta harresiek, **aletegi** eta ukuilu txikiek pikardaturik. Agustin Otsoa

Arkeologo talde batek historiaurreko Neolito aroko zortzi **aletegi** topatu ditu Egipton, Al Fayumen. Berria - Kultura

Hornigai, bizigai eta garagardo-kantitate handiak aurkitu ziren, bidelapurrek etxola eta **aletegi** eta haitzulo abandonatuetan ezkutaturikoak. Agustin Otsoa

Aletegiak leku garaian jarriko dira eta iparraldera edo ipar-ekialdera begira; hala, garia ez da hain azkar berotuko, eta haizearekin hoztuz, luzaro iraungo du. Santiago Iruretagoiena

Garauez beteko dira zure **aletegiak**, ardo berriz gainezka egingo dolareek. Elizen arteko biblia

Orduan Josek **aletegiak** ireki eta garia saldu zien egiptiarrei. Jose Antonio Mujika

Patioan eraikuntza asko zegoen: mirabeen bizitokiak, **aletegiak**, sotoak... nabarmenki zahartuak denak; Hobe duk nekazaria izatea, garia ereitea eta landetxe on bat izatea, **aletegiekin**, txerriekin, zaldiekin, behiekin, oiloekin. Jose Morales

Lurjabe hark mila arima baino gehiago zituen, eta zaila litzateke aurkitzea beste inor hark adina gari zuenik eta biltegietan, **aletegietan** eta idortegietan hark beste oihal, ehun, ardi-larru ondu zein ondugabe, arrain gazitu, barazki eta ehizaki zuenik. Jose Morales

Bien bitartean, Fulgor Sedano **aletegiraino** joan zen artoaren galga ikuskatzera. Juan Garzia

Plazatik irten eta kale zahar luze batean dago; kalearen albo banatan zurezko etxeak, **aletegi** zaharkituak. Eskarne Mujika

---

aletsu *izond* ale asko duena.

Gerri beretik, zazpi galburu **aletsu** eta mardul sortu ziren. Elizen arteko biblia

Zazpi galburu meharrok irentsi egin zituzten beste **aletsu** eta bete haiek. Elizen arteko biblia

Zazpi galburu mehar hauek irentsi egin zituzten beste zazpi galburu mardul eta **aletsuak**. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aletsu eta (3)

---

aletu, aletzen **1** du *ad* landare aledunez mintzatuz, aleak burutik bereizi.

Bai Bizkai aldean, eta baita Donostia eta Usurbil aldean ere, Ostiral Santu goizez, artoa **aletu** eta ereiteko gordetzen da propio. Pello Zabala

Lakari bat ilar eman zion Denverri, **aletu** eta gauean beratzen uzteko. Anton Garikano

Mujiken alorretan aspaldi burutu zen zekalea, **aletu** oloa eta hazi artatxikia, eta beraren lurretan, aldiz, artoa garatzen hasi berria zen eta garia hozitu gabe zegoen oraindik. Jose Morales

Ilarrak **aletzea** nahiko lan nekagarria da berez ere, baina ez dakizu zer den lekak zuritzea. Josu Zabaleta

Treffertek zioenez, "era guztietako soinuek liluratzen zuten -teilatuan euriak egiten zuen zaratak, arto-ganbaran artoa **aletzean** sortzen zenak, baina batez ere musikarenak-; eta arreta handiz entzuten zituen koronelaren alaben praktikak, haiek pianoan sonata eta minuetoak jotzen zituztenean". Xabier Olarra

2 irud/hed

Tomasek gure lehiakideen egunkarian irakurritako jakingarri makabro guztiaren arrosarioa **aletu** zion. Aingeru Epaltza

Txostenak hamaika auzi arantzatsu eta arlo kezkagarri **aletu** ditu: [...]. Berria - Harian

2000. urtean giza genomaren segida **aletu** edo sekuentziatu dela iragarri zen, eta gero eta nabariago agertzen da prentsan eta komunikabideetan medikuntza genomikoa panazea berri gisa. Askoren artean

Telefonoak bere garro distiratsuen hots-aleak **aletu** zituen. Lopez de Arana

Pekin, Kopenhage, Samarcanda, Sarajevo eta Sintra -**aletu** zituen alkateak-. Felipe Juaristi

Minutu batzuk lehenago, leihotik begira **aletu** zituen zigarroa erre bitarteko begirakuneak eta hausnarketak. Josu Landa

Nik, orduan, susmo beltz haren zantzu guztiak **aletu** nizkion: jatorri misteriotsua, herrian bat-batean agertu izana eta berehala taberna zabaltzea, tabernan gure moduko jendearentzako giroa sortzea, bere sinpatia mugagabe hori...[...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Carlosek, berriz, beti **aletu** behar zizkien emakumeengan sortzen zuen xarma ikaragarriaren xehetasunak. Aritz Gorrotxategi

Banan-banan **aletuko** ditugu zuhaitzon kontuak, eta baita urtearen lau kantoietan ospatzen zituzten beste lau festa handi horien berri apurrak ere. Pello Zabala

Nik ezer erantzun orduko bera hasi zitzaidan haien kontrako bekatuak banan-banan **aletzen** eta haietaz zorrotz galdetzen. Edorta Jimenez

Berak orduan halako ipuin miresgarriak **aletzen** zizkidan, nik neuk eldarnio aldietan sortuak ziren ala lobelarraren eraginez bizi izanak ote ziren, egundaino jakiterik ukan ez ditudan ipuinak. Edorta Jimenez

Berbak **aletu** ahala, haren hatsa sudur zuloetatik hurreago eta giltza begien pareago, halaxe nituela sentituz nindoan. Edorta Jimenez

Eta eguzkia eguerdian piko-piko dabilenez, hor joaten da hegoa lotsagabetzen, harroxkotzen, lainezaz jantzita, laino **aletu** bat edo beste ekartzen aurrena, eta zeru-kanpai hori betetzen eta kargatzen arratsaldea aurrera doala. Pello Zabala

Itsas hondotik ateratako mikroorganismoekin ikertzaileek zer egingo duten jakin nahi dute: "Zer gertatuko da Mikrobioak Rockvilleko (Maryland, AEB) laborategietara iritsi eta haien ADNa **aletzea** lortzen dutenean". Berria - Gaiak

Legearen zeregina da, zabal jokatuta ere, zuzenbidearen goiburu nagusiak finkatzea; ondorio ugaridun oinarri emankorrak zehaztea; ez, ordea, gai bakoitzean sor daitezkeen zerik barreiatuenak xehetu eta **aletzea**. Andres Urrutia

Era guztietako soinuek liluratzen zuten -teilatuan euriak egiten zuen zaratak, arto-ganbaran artoa **aletzean** sortzen zenak, baina batez ere musikarenak-; eta arreta handiz entzuten zituen koronelaren alaben praktikak, haiek pianoan sonata eta minuetoak jotzen zituztenean. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aletu dituzte** (4); **aletu edo** (3); **aletu edo sekuentziatu** (3); **aletu eta** (3); **aletu zituen** (7); **aletu zizkidan** (3); **aletu zuen** (4); **aletzen ari** (8); **aletzen ari zen** (4); **aletzen ditu** (6); **aletzen hasi** (3); **aletzen zituen** (3); **guztiak aletu** (4); **ilarrak aletzen** (4)

---

aletxo *(ETCn **384** agerraldi, horietatik **224** azken sei urteetan)* **1** *iz adkor* ale txikia.

Klitoria, zer hori, kozkortxo, **aletxo** hori. Luis Elberdin

Zomorro txiki honek babarrunaren lekan -oraindik berdea eta txikia denean- jartzen ditu bere arrautzak, babarrun ale bihurtuko diren **aletxo** berdeetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Azaro umelean, gari-**aletxoa** lurraren ilun buxti eta hotzari enkargatuta gero, haretxen esperoan zihoan negua, parte onekoa ote zenentz, ikara punttu batekin, gariaren ernetze eta ernamuintzea zaintzen. Pello Zabala

Hasperen eutsi bat, hondar **aletxo** bat hondartzan, tantaño bat itsasoan. Joxerra Garzia

Ahapaldi bakoitzean, gorostiaren ñabarduratxoren bat hartuko da, Jesusen dohainekin alderatzeko: dela loratxoaren xuri garbia, edo fruitu **aletxoaren** gorri odolezkoa, dela hosto kantoietako arantzatxoen ziztada, edo azalaren distira lustrezkoa edo garratz ozpina. "Ama txukatu malkoak" izeneko bertso-saileko **aletxo** bat da hilobian idatzitakoa. Pello Zabala

Eta neure **aletxoa** uztartu nahi izan diot Mariorenari: [...]. Lehen urtekadak 300 edo 440 orriko **aletxoak** dira: gaur egun, urtean-urtean, 1.300na orriko hamalau liburuki moldiztatzen dira kontu beraz. Jokin Urain

2 *nork bere aletxoa jarri* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Nork bere aletxoa jarri behar du. ETC-prentsa

Hala ere, aurrera goaz, **nork bere aletxoa** jarriz, eta begirada hori aldatuz. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aletxo bat** (3)

---

aleungarren ik **alehungarren**.

---

aleunka ik **alehunka**.

---

aleutiar *izlag/iz* Alaskaren luzatze bat den uhartediari dagokiona; uhartedi horretan bizi den biztanlea.

Galtzeko zorian diren steller itsas-lehoien, **Aleutiar** uharteetako itsas igaraben eta beste espezieren bizilekua da. Berria - Gaiak

2004ko abendua: Malaysiako ontzi batek 500.000 litro erregai isuri zuen Alaskako **Aleutiar** Uharteetako kostaldean. Berria - Gaiak

Finlandiarrak, estoniarrak, laponiarrak, txeremiarrak, txuvashiarrak eta permiakak gehitzen baditugu, eta alemaniarrak, grekoak, tatariarrak, Kaukasoko leinuak, mongoliarrak, kalmukak, samoiedoak, kamtxatkarrak eta **aleutiarrak** gaineratzen, ongi ulertuko dugu horren estatu zabalean batasunari eustea zaila baino zailagoa dela. Karlos Zabala

---

alexandriar *izlag* neurtitz lerroez mintzatuz, bi hemistikiotan banatutako hamalau silabez osatua. ik**alexandrino**.

Hartan, zirenear eta **alexandriarrez** osatua zegoen eta "Askatuena" zeritzan sinagogakoak, ziliziar eta asiar batzuekin batera, Estebanekin eztabaidan hasi ziren.-Ez al dira, bada, **alexandriarrak** kontu handiz saihestu behar prosan, jauna? Elizen arteko biblia

---

alexandrino **1** *iz* neurtitz lerroez mintzatuz, bi hemistikiotan banatutako hamalau silabez osatua. ik**alexandriar**.

Eta jakinda Queneau zeinen klasikozalea zen eta zeinen maitea zuen **alexandrinoaren** neurria (7 7), ez da batere harritzekoa iturri horietatik ateratzea bere liburua osatzeko ideia. Xabier Olarra

Londresera abiatu aurretixe, Swinburne-ren liluramendua ezagutu nuen, eta haren kariaz zalantzan jarri nuen lehen aldiz -eta erru bat bailitzan bizi nuen zalantza hori- Iralaren **alexandrinoen** bikaintasuna. Juan Garzia

Sonetoaren kasuan Oihenartek Zalgiz poetari egindako soneto ospetsu haren ildotik (**alexandrinoz** osatua, 12-13 silabako lerroz alegia), 14 silabako bihurtu dut (nahiz eta berez sonetoa 11 silabakoa izan), luzera hori lagungarria baita oso, edukia osorik (edo ia) ekarri ahal izateko. Xabier Olarra

Bere poemaren australiar aldeko pasarte neke handiko batzuk irakurri zizkidan; **alexandrino** luze itxuragabeok ez zeukaten hitzaurreak aldez erakusten zuen nolabaiteko bizitasunik ere. Juan Garzia

2 (izenondo gisa)

Paul Valéry-ren Cimitière marin delakoa, neurtitz **alexandrinoetara** aldatua. Juan Garzia

---

alexia *iz* irakurtzeko gaitasuna galtzea burmuineko eritasun baten ondorioz.

Bost egun iraun zion **alexia** edo irakurtzeko ezintasun hark; gero, etorri bezala joan zitzaion. Xabier Olarra

Deskribatutako kasu askok bestelako problemak ere bazituzten arren (ikus-eremuaren murrizteak, ikusmen-agnosia, **alexia**, etab.), ematen zuen asoziazio-kortexaren erdialdean zeudela lesio erabakigarriak. Xabier Olarra

---

alfa **1** *izlag* oinarrizkoa edo hasiera puntua dena.

Ez dakit zenbat denboraz egon nintzen han eguzkia sartzen ari ziren bitartean, baina ia-ia **alfa** egoera iritsi nuen, adimena eta gogoa inguratzen eta betetzen ninduen guztiaren arnasan zeharo murgildua, lasaitzen ari nintzen bitartean. Jon Muñoz

Era honetako hainbat mugimendu mota dira, eta alfabeto grekoaren arabera sailkatu dira: **alfa** mugimendua hedatze- edo uzkurtze-mugimendu bat da, [...], beta mugimendua goian deskribatu den mugimenduari dagokio (puntu batetik bestera doan mugimendua), eta hala segidan. Josu Zabaleta

2 ***alfa desintegrazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Alfa desintegrazioa atomo batek alfa partikula bat igortzen duen desintegrazio erradioaktiboa da. **Alfa desintegrazioaren** ondorioz, atomoaren masa-zenbakia 4 unitate gutxiago eta atomo-zenbaki zenbaki atomikoa 2 unitate gutxiago izatera igarotzen da. ETC-entziklopedia

241Am isotopoaren **alfa desintegrazioa** radioarena baino hiru aldiz handiagoa da. ETC-entziklopedia

Alfa desintegrazioa desintegrazio erradioaktiboko prozesu bat, zeinetan atomo baten nukleoak alfa partikula bat igortzen baitu. ETC-literatura, saiakera

Alfa desintegrazioan a partikula baten potentzial-langa batean zeharreko iragazketa mekaniko-kuantikoa dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 ***alfa eta omega*** hasiera eta amaiera.

Neu naiz **Alfa eta Omega**, lehena eta azkena, hasiera eta bukaera. Elizen arteko biblia

Alfa eta Omega letrak dagoz atearen aldetan, bietan bana. Edorta Jimenez

Axularri buruz abenturatu ditudanak horrela balira ere: itzalaren metafora bera da, literatur talaiatik begiraturik, gorabehera honen guztiaren **alfa eta omega**. Anjel Lertxundi

Bera da **alfa eta omega**, ikerlaria eta aztergai bilduma. Jenaro Garate

Kandela piztuaren dirdira, **alfa eta omega**, omega eta alfa. Iban Zaldua

· Izan omen ginena eta izan behar omen duguna: horra, dirudienez, gure **alfa eta** horra gure **omega**; horra gure bi harri puska gainetik kendu ezinak. Anjel Lertxundi

Ideologia desberdinak ez ezik, kultura berezitasunak daudela bertan, hizkuntza izanik berezitasun horren **alfa eta** baita, ia-ia, **omega** ere. Bernardo Atxaga

Salbatu ninduen mojaren patroiak Sabinoren gainetik agintzen zuela erakutsi nahi izan zion, nonbait, eta, neure jaioteguna gogoan, iruditu zitzaidan nolabait ere **alfa eta omegaren** arteko ibilbidea burutzen nuela. Ramon Saizarbitoria

4 ***alfa fetoproteina*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Alfa-fetoproteinaren kantitatean antzematen diren aldaketak beste faktore batzuek eragin ditzakete: fetuaren adinaren kalkulu okerra, haurdunaldi bikoitza... ETC-entziklopedia

Odol-proba **alfa-fetoproteina** (AFP) maila egiaztatzeko. AFP gibeleko zelulek askatutako proteina da gibeleko minbizia gertatzen denean. ETC-entziklopedia

5 ***alfa izpi*** *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Aurkikuntza asko egin zituzten 1920tik aurrera: **alfa izpien** espektroaren egitura topatu zuen han Salomon Rosenblumek, 1929. urtean. ETC-prentsa

X aktinioa prestatzen ari da **alfa izpien** espektrorako. ETC-literatura, saiakera

Aspalditik nahigabetzen zuen galdera horrek Rutherford; zera aurkitu zuenez geroztik: **alfa izpiak**, berez, karga positibodun partikula batzuk zirela, eremu magnetiko indartsuek desbideratzen zituztenak. ETC-literatura, saiakera

Alfa izpia funtsezkoa izan zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Rutherfordek aurrez aurkitutako **alfa izpiak** urrezko xafla mehe baten aurka jaurtiki zituzten eta aurkitutako emaitzak Thomsonen eredu atomikoarekin bukatu eta atomoaren egitura berrazaltzeko beharra sortu zuten, Bohrren eredu atomikoa. ETC-entziklopedia

Polonioaren **alfa izpiei** buruzko tesiarekin doktoretza lortu zuen. ETC-entziklopedia

Urrezko xafla oso fina alfa partikula edo **alfa izpiez** bonbardatu zuen eta pantaila fluoreszente baten bidez izpi hauen desbideraketa aztertu zuen. ETC-entziklopedia

6 ***alfa partikula*** *(corpusean ez dago; ETCn **234** agerraldi)*

Alfa partikulak Helio-4 (ren guztiz ionizatutako nukleo atomikoak dira, hau da, elektroirik gabeak. ETC-entziklopedia

Demagun **alfa partikula** batek DRAM memoriako gelaxka bat jotzen duela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bere aurkikuntza handiena, hain zuzen, **alfa partikulen** dirdirak zenbatzen (horrela izena zuten, behintzat, orduan) pantaila baten aurrean orduak eta orduak (ezin aspergarriagoak) pasatzeko prest egon zelako egin zuen. ETC-literatura, saiakera

Abiadura hori **Alfa partikula** baten abiaduraren ingurukoa da. ETC-literatura, saiakera

Erauz zitekeen protoi bat edo **alfa partikula** bat (bi protoi eta bi neutroi elkarrekin lotuak). ETC-zientzia, zuzenbidea

Lan horren erdi-erdian, hauxe zegoen: **alfa partikulak** erabiltzea atomoa frogatzeko. ETC-literatura, saiakera

Hark gainbegiraturiko saio batean, haren ikasle Hans Geiger eta Edward Marsden-ek **alfa partikulaz** bonbardatu zuten urre-orri mehe-mehe bat (**alfa partikulak** karga positiboko partikula ñimiño batzuk dira, elementu astunen desintegrazio erradioaktibotik sortuak). ETC-zientzia, zuzenbidea

Alfa partikula bat (bi protoiz eta bi neutroiz osaturiko helionukleoa) wolframio nukleo jakin baten kontra zuzendu da (184W; 74 protoi eta 110 neutroi ditu). ETC-zientzia, zuzenbidea

a) **Alfa partikulak** (helio nukleoak), zenbaki atomikoa 83 baino altuagoa duten erradioisotopoen desintegrazio-prozesuetan ohikoak direnak: ETC-zientzia, zuzenbidea

Alfa partikula ere esaten zaio: lausoa da batzuetan bereizkuntza fisika atomikoaren mundu txiki-txiki eta bizkor-bizkorrean. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 ***H alfa*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Fisikan, **H alfa**, Ha idatzia, hidrogenoaren espektroaren igortze zerrendetako bat da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alfa arte (5); **alfa artek** (5); **alfa arteko** (3); **alfa eta** (14); **alfa eta omega** (8); **alfa hoteleko** (5); **alfa hoteleko harrera** (3); **alfa romeo** (7); **da alfa** (4); **du alfa** (3); **eta alfa** (5); **naiz alfa** (3); **naiz alfa eta** (3); **neu naiz alfa** (3)

---

alfabetatu, alfabetatzen **1** da *ad* erdaraz irakurtzen eta idazten dakien euskaldunez mintzatzuz, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasi.

Giroaren uherrak eta urteetan erabili ez izanaren herdoilak atzendua zioten hizkuntza; hala ere, geroztik ondo ikasi zuen, **alfabetatu** zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Pintadekin ere **alfabetatu** ginen belaunaldi batekoa naiz. Iñigo Aranbarri

Jendea ergela da, ezjakina, **alfabetatu** gabea eta Harri Aroan bizi da, badakit. Fernando Rey

Adibide honetan, sinonimo ariketetan trebatu den euskaldun berri bat eta **alfabetatu** gabeko lapur bat hasi dira hizketan: [...]. Iñaki Arranz

2 (era burutua izenondo gisa)

Arazotxoak izan ziren aurrena, jende **alfabetatu** gutxitxo baitzen orduan, aukeran: % 17ak bakarrik jakin, orduan, irakurtzen. Pello Zabala

Konstituzioa aldatu zenean afroamerikarrei eskubide zibilak emateko, hegoaldeko estatuek hainbat baldintza jarri zituzten bozketa zerga ezartzeaz gain, **alfabetatu** izatea exijitu zuten eta beren legeak aldatu zituzten beltzak baztertzeko. Berria - Mundua

Jendea ergela da, ezjakina, **alfabetatu** gabea eta Harri Aroan bizi da, badakit. Fernando Rey

Arrasateko euskaldun **alfabetatu** gabeak nituen ikasle, eta nik liburuan zetorren guzti-guztia irakasten nien, ezagutu zein ez, sinistu zein ez. Joxerra Garzia

· Ez ninduen harritu gaztelania erabiltzeak, **alfabetatu** gabea zelako. Ramon Saizarbitoria

Adibide honetan, sinonimo ariketetan trebatu den euskaldun berri bat eta **alfabetatu** gabeko lapur bat hasi dira hizketan: [...]. Iñaki Arranz

3 *euskaldun alfabetatu gabe*

Arrasateko **euskaldun alfabetatu gabeak** nituen ikasle, eta nik liburuan zetorren guzti-guztia irakasten nien, ezagutu zein ez, sinistu zein ez. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alfabetatu gabea (3); **alfabetatu gabeak** (3); **alfabetatu gabeko** (3); **eta alfabetatu** (3)

---

alfabetatze 1 *iz* erdaraz irakurtzen eta idazten dakien euskaldunez mintzatzuz, euskaraz irakurtzen eta idazten ikastea.

Gure **alfabetatze** berantiar eta zatikakoagatik, barne-aurkezpen hori hizkuntzaren forma idatzi estandarrarekin berdintzen dugu itsu-itsuan. Lourdes Oñederra

"Zientzia, Teknologia, Gizartea" esparruan aditua da, Demokrazia eta **Alfabetatze** Teknozientifikoa (DAT) taldeko bultzatzailea da, baita DigitalWare aldizkariko langilea ere. Askoren artean

Ikaslearen **alfabetatze** zientifiko-teknologikoa bermatu behar da, eta hori izango da gure erronka aurrerantzean. Berria - Harian

Garbi dago hiztun askok hitz muga horren kontzientzia idatziaren poderioz eta **alfabetatzearen** eraginez hartu bide dutela eta, kontzientzi hartze horrekin batera, /g/ ahoskabetzeari utzi diotela. Lourdes Oñederra

Gaur egun, oraindik, hezkuntza sistemari oso lotuta daude irakurle asko, adibidez helduen **alfabetatzearen** arloan. Berria - Kultura

Alfabetatzearen inguruko datuak. Berria - Gaiak

Hango emazte elkarte batek eramaiten duen proietua, barazki ekoizpen bat eginez, baita ere **alfabetatze** lana. Herria

Izugarrizko jauzia izan zen: **alfabetatze** planak, laguntzarik gabeko milioika pertsonentzako dohako osasun zerbitzuak (Kubaren laguntzaz), trebakuntza programak, enpresa txikiaren bultzada. Berria - Mundua

Gobernuak orain arteko programa sozialak bultzatzen eta garatzen jarraituko du, bai osasun sistemaren arloan, **alfabetatze** prozesuaren arloan eta kultura mailan. Berria - Mundua

Misio horien artean, herrialde osoko auzo pobreetan zerbitzu medikuak, azoka herrikoiak hedatzea, **alfabetatze** kanpainak eta hezkuntzako etapa ezberdinak bermatzea eta lanpostu berriak sortzea daude, beste hainbaten artean. Berria - Mundua

Jende nagusien artean dagoen **alfabetatze** tasa. Pello Salaburu

Bi talde horiek direlarik bigarren maila bat eta **alfabetatze** maila. Herria

Zeri buruz ari zarete **alfabetatze** faltaz hitz egiten duzuenean? Berria - Harian

Oihartzun handiko liburuak dira, oso erabiliak irakaskuntzan eta **alfabetatze** munduan. Berria - Kultura

Alfabetatze kontuetan Kerala da estaturik aurreratuena. Gotzon Garate

Alfabetatze -sistemen aurrerapenerako ere balio dezake fonetikak. Lourdes Oñederra

Helduen euskalduntze-**alfabetatze** sektorea oraindik normalizatu gabe dagoela. Berria - Euskal Herria

Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea. Iñaki Arranz

Helduen **alfabetatze** eta berreuskalduntzerako erakundea. Iñaki Arranz

2 *alfabetatze tekniko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Gauzak osoago esaterik banu, hasiera hartan hizkuntzaren irakaskuntzan eta **alfabetatze teknikoan** ere buru-belarri jarduna naizela esango nuke. ETC-prentsa

Gure egileek hizkera landua darabilte testuan, euskaraz eta zientziaz hitz egitean **alfabetatze teknikoaren** beharraren muga gaindituz, eta, areago, ondorengooi jarraibide ederra emanez. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alfabetatze eta (10); **alfabetatze eta berreuskalduntzerako** (3); **alfabetatze euskalduntzea** (3); **eta alfabetatze** (8); **eta alfabetatzea** (4); **euskalduntze alfabetatzea** (16); **euskalduntze alfabetatzeak** (3); **euskalduntze alfabetatzean** (4); **euskalduntze alfabetatzearen** (10); **euskalduntze eta alfabetatzea** (3); **helduen alfabetatze** (10); **helduen alfabetatze eta** (7); **helduen alfabetatze euskalduntzea** (3); **helduen euskalduntze alfabetatzea** (12); **helduen euskalduntze alfabetatzearen** (7)

---

alfabetiko 1 *izond* alfabetoarena, alfabetoari dagokiona.

Estenografoek hartutako ohar eta elkarrizketa asko iristen dira erredakzioetara eta ez dago denborarik hizkera **alfabetikora** aldatzeko, tipografo on batek estenografian jakin beharra dauka. Koldo Izagirre

Horrek ez du esan nahi idazkera **alfabetikoa** erabiltzen denean nahitaez ikur grafiko edo letra bakoitzak hots bat islatzen duenik. Lourdes Oñederra

Ikusia dugu idazkera primitibo batzuek banako silabikoak markatu zituztela; sistema **alfabetikoa** geroago etorriko zen. Isabel Arrigain

Gaiak ordena **alfabetikoan** antolatuak daude. Askoren artean

Bestelako osagarririk ere badu liburuak: lehen bertsolerroen zerrenda **alfabetikoa**, antroponimo eta toponimoen zerrenda, aztertutako hitzen zerrenda eta adizkitegia, bibliografia, [...]. Berria - Kultura

Artxibo **alfabetiko** batera jasotzen ziren gero egiazkotasun finkagaitzeko berriok guztiok. Juan Garzia

Libreta **alfabetiko** batean apuntatu nituen topatu ahala, eta laster neukan beterik libreta. Juan Garzia

Badira autoreak fonologiaren hasiera bera hatsarre **alfabetikoaren** sorrerarekin batera jartzen dutenak. Lourdes Oñederra

Self andereñoari liburu honen (ingelesezko edizioaren) aurkibide **alfabetiko** orokorra egin duelako. Iñaki Mendiguren

Hurrenkera **alfabetikoak** agintzen du, halaber, Ibon EGAÑAk Karlos Linazasororen kontagintzari buruz idatzitako artikulu bat, atal izenei gagozkiela: Absurdoa -Amaiera - Beroa -Bizitza -Borges, Jorge Luis -Cortázar, Julio -Denbora -Eldarnioa -Filosofia -Gabeziak -Heriotza -Ironia -Itxaropena- [...]. Iñaki Arranz

Hurrenkera **alfabetikoak** beste hurrenkera batzuk desordenatzeko ere balio du. Iñaki Arranz

Idazkera fonetikoak izan daitezke silabikoak nahiz **alfabetikoak**. Isabel Arrigain

· Istorioa entzun ondoren, erbinude **alfabetiko** honen hamahirugarren hankari begirada azkar bat eman, eta M letraren iritzia irakurtzen dut bertan: [...]. Bernardo Atxaga

2 *aurkibide alfabetiko*

Oso eskerturik nagokio O. P. Self andereñoari liburu honen (ingelesezko edizioaren) **aurkibide alfabetiko** orokorra egin duelako. Iñaki Mendiguren

3 *ordena alfabetiko*

Denak sailkatu ditut berriz, egileen arabera, **ordena alfabetikoz**. Koldo Izagirre

Kajetan Esser-ek, idazki hain ezberdinak marko estuetan sartzea ezinezkotzat joz, ez ditu sailetan antolatzen, baizik eta **ordena alfabetikoan** ematen ditu. Askoren artean

Gaztelaniazko itzulpenean, olerkiok beste hurrenkera batean daude, edukiak men egiten baitu **ordena alfabetikoari**: Abril, Alma, Amapola, Amor, Ángel, Aritmética, Auschwitz, Ausencia, Corazón... (JUARISTI Ge). Iñaki Arranz

Tiraderak **ordena alfabetikoaren** arabera zeuden sailkatuta. Alberto Ladron Arana

Gero, egileen izenen **ordena alfabetikoaren** arabera. Jon Muñoz

Argibide bat izan da; ulertu egin dut Autodidaktaren metodoa: **ordena alfabetikoaren** araberako ikasbidea egiten du. Monika Etxebarria

366 orrialdeko liburuki mamitsua, toponimoak herrika eta **ordena alfabetikoan** sailkaturik. Herria

Martinek kontseilari guztien zerrenda irakurri zuen, **ordena alfabetikoan** . Berria - Euskal Herria

4 *hurrenkera alfabetiko*

Hurrenkera alfabetikoak beste hurrenkera batzuk desordenatzeko ere balio du. Iñaki Arranz

[...] organigrama bat denez gero normala litzateke **hurrenkera alfabetikoan** egotea, baina ez daude gisa horretan, ez horixe [...]. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erbinude alfabetiko honen** (3); **ordena alfabetikoan** (5); **ordena alfabetikoaren** (4)

---

alfabetikoki *adlag* alfabetoareen arabera.

Ikasgai komunetan (lengua española, frantsesa, filosofia) **alfabetikoki** geunden jarrita bi taldetan: bera A, ni M. Xabier Mendiguren Elizegi

Atal bakoitzean, **alfabetikoki** ordenaturik, pertsonaia baten berri ematen digu, bizpahiru orritan haren ibilerak eta jazoerak kontatzen dizkigu, eta pertsonaia hori zein liburutan topatu duen ere zehazten zaigu. Berria - Kultura

Antolatzaile eta epaileen nahitara puntuaziorik ez da publikatu, bakarrik sailkapeneko bi lehenen izenak hemen **alfabetikoki** agertzen direnak: Miren Artetxeeta Amets Arzallus, lehen izendatuak eskuratzen zuela bertso hoberenaren saria. Herria

Gero beste sailkapen mota batzuk egiten dira, eta azkeneko zerrendak **alfabetikoki** sailkatzen dira, unibertsitate bakoitzaren ezaugarriak balioztatuz, erakundeak elkarren artean hain desberdinak direla kontuan izanik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eta azkenik, **alfabetikoki** eman eranskinak. Berria - Kultura

Egile zehatzik ez balego, argitalpenaren organismo arduraduna litzateke **alfabetikoki** kontuan hartzeko hurrengoa; edo bestela izenburua. Askoren artean

---

alfabetisatu ik **alfabetizatu**.

---

alfabetizatu *izond* irakurtzen eta idazten dakiena.

Atzerapen teknikoa, bestalde, erlatiboa zen, zeren Japoniako gizartea, Meiji aroaren bezperan, oso **alfabetizatua** eta urbanizatua baitzen. Koro Navarro

Soziolinguistikaren terminologian dioten bezala ez zara **"alfabetizatua"** izan. Ramuntxo Etxeberri

---

alfabetizatze *iz* irakurtzen eta idazten ikastea.

Balinbada, segidan hasi behar du **alfabetizatze** urratsa eta haurrek eskolara joan behar dute. Herria

Definitu izan dira, eta erabiltzen dira adierazle berriak; esaterako, Giza Garapenaren Indizea, zeinak lau osagai lantzen dituen: jaiotzerakoan gizakiak duen bizi-itxaropena, gizaki helduen **alfabetizatze** tasa, hezkuntza sisteman matrikulazio tasa eta gizaki bakoitzaren errenta erreala. Iñaki Heras

---

alfabetizazio *iz* alfabetizatzea.

Gaur egungo garapen-prozesuetan berdinberdin gertatzen da aspaldi industrializatutako herrialdeek egin zuten bidea: **alfabetizaziotik** iraultza demografikora, aldaketa politiko eta ekonomikoetaraino iritsi arte. Koro Navarro

Alfabetizazioarekin batera, beste gertakari batzuk ere badira jokoan. Koldo Zuazo

Atseden etxe bakoitzak ikastaro jakin batzuk eskaintzen dituen arren, guztiek gai orokor batzuk jorratzen dituzte: Autoestimua eta bioenergia, Sukaldaritza garbia eta sortzailea, **Alfabetizazio** emozionala, Dantza tailerra. Berria - Harian

Literatura **alfabetizazio** modu bat dela. Berria - Kultura

Emakumeen **alfabetizazio** maila gizonenaren parekoa da, eta askotan handiagoa ere bai. Berria - Gaiak

Tanzaniako **alfabetizazio** tasa baino urriagoa. Berria - Harian

Munduko lehen superpotentzia, planetako 49.a da **alfabetizazio** indizeari dagokionez. Txema Ramirez de la Piscina

---

alfabeto 1 *iz* hizkuntza batez idazteko erabiltzen diren zeinuen edo letren sistema; letra horien zerrenda, ohiko hurrenkeraren arabera. ik **abezedario**; **abeze**.

Alfabetoa , hainbeste erabilera dituen zerrenda, laguntza handikoa izan daiteke pentsatzeko garaian, ezen ziurtasuna ematen du, konfiantza, fededunek behatz artean errosarioa hartzean sentitzen duten lasaitasun berbera. Bernardo Atxaga

Eta P-ren atzetik Q, testu honen quille edo gila, letraontzi honen armazoia **alfabetoa** dela gogorarazten didana; eta Q-ren atzetik R arraroa; eta R-ren atzetik Sheguers-en S-a. Bernardo Atxaga

Letrak segida jakin batean ordenatzen ditu **alfabetoak** , eta hurrenkera horrek aurrera/atzera egiteko bidea zabaltzen digu guri. Iñaki Arranz

Zuzenean ingelesa ikertu beharrean, iker ditzagun **alfabetoan** a eta b letrak baino ez dituzten zenbait hizkuntza; euren perpausak (10i-iii) arauetan zehazten dira: [...]. Itziar Laka

Orain egin **alfabetoan** letra bat aurrera, lehen f atera bazaizue, g letrara egin salto eta erantzun azkar bigarren galdera honi: [...]. Patxi Zubizarreta

Alfabetoaren hurrenkeraz ari gara -dela letra guztiena dela bokalena-, horrexek ematen baitigu hizkuntza kontuetan eskura dugun serializaziorik nabarmenena. Iñaki Arranz

Hamar horiek ziren **alfabetoaren** arabera: Pierre apeza, Bourvil, Coluche, Cousteau, Marie Curie, de Gaulle, Hugo, Molière, Pasteur eta Edith Piaf. Herria

Behin hori esanda, eta N-an nagoenez, nabigatu egingo dut O- raino, hara iritsi eta **alfabeto** hau idazteko orduan nire Objetive bat zein izan den aitortzeko: [...]. Bernardo Atxaga

Ahots organoak hizkuntzaz kanpokoak dira, Morse **alfabetoa** transkribitzeko balio duten aparatuak ere **alfabeto** horretaz kanpokoak diren hein berean. Isabel Arrigain

Eta **alfabeto** morsea, ulertzen duzu? Koldo Izagirre

Zertarako nekatu burua martiri puruen bila kaleak izendatzeko **alfabeto** bat dugunean? Harkaitz Cano

A: lehenengo bokala da, **alfabeto** guztietako lehenengo letra; amhareran edo abisinieran, berriz, hamahirugarren letra da, eta errunikoan hamargarrena. Lopez de Arana

"Braille **alfabetoa"** sortu zuenari omenaldi bat. Herria

Irakurtzen jakin behar, ordea, ezkutuko **alfabetoren** baten jabe izan behar. Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Antzinaroko **alfabeto** misteriotsu baten ikurrak ziruditen. Alberto Ladron Arana

Bi mintzaira eta **alfabeto** ezberdinetan idatziak, baina mezu bakarra: traidore. Xabier Montoia

Ataturkek oso gogoko zituen Frantziako iraultza garaiko pentsalariak, eta, Turkia mendebaldeko zibilizazioan integratzearren, erreforma sakonak egin zituen: **alfabeto** arabiarraren ordez **alfabeto** latinoa ezarri zuen. Berria - Mundua

Gaztelaniaz idatzi nuen, baina **alfabeto** grekoz, amak aurkitzen baldin bazuen ere, uler ez zezan. Agurtzane Juanena

Oro har nahiago izan zituzten ORTOGRAFIAN arrunt diren ikurrak (b, m, etab.), **alfabeto** erromanikoarekin uler daitezkeenak, nolabait esan. Lourdes Oñederra

Cadmos arrebaren bila aritu zen buru-belarri, eta bilaketa horretan ziharduela **alfabeto** feniziarra Biblosen asmatua irakatsi zien greziarrei. Berria - Mundua

Aramear **alfabetoari** dagokionez, are konkista handiagoak egin zituen. Iñaki Mendiguren

Badira bestelako **alfabeto** bat dutenak eta gure grafia eta hizkiak ikasi behar izan dituztenak, eta badira fonetika aldetik bestelako heziketa izan dutelako berriro ere ahoskatzen ikasi behar izan dutenak. Berria - Harian

Egun, zabalduen dagoena Nazioarteko **Alfabeto** Fonetikoa (NAF) da. Lourdes Oñederra

Alfabeto fonologiko bat jarri behar al genuke ohiko ortografiaren ordez? Isabel Arrigain

Alfabeto osoa luze iritzita, gutxiagorekin ere ase gaitezke, letren mundutik atera gabe: bokalen hurrenkera dugu horretarako, hau da a, e, i, o, u. Iñaki Arranz

Bai bokalismoak bai kontsonantismoak **alfabeto** mugatuekin jolastera behartzen gaitu. Iñaki Arranz

Euskararen inguruko ikerketan izan duen tradizioagatik, ezagutu beharrekoa da gorago aipatu **Alfabeto** Filologikoa. Lourdes Oñederra

Grezierazko **alfabeto** primitiboan. Isabel Arrigain

T. **Alfabeto** ingeleseko hogeigarren letra, grekoek *tau* izen zentzugabea ematen ziotena. Xabier Olarra

Alfabeto hori arabiarra da. Edorta Jimenez

3 (hitz elkartuetan)

Morse jaunaren **alfabeto** sistema. Pello Zabala

Alfabeto ordenak, kasu, hitz, esaldi edo testu baten egitura antolatzeko modu ezberdin asko eskaintzen ditu, alfabetoan barrena aurrera edo atzera egiteko aukera ematen baitu. Iñaki Arranz

Aspaldi batean irakurritako liburu hartako pertsonaia etorri ohi zitzaion gogora -azken batean, pertsonak berak baino hobeto gogoratzen zituen zenbaitetan pertsonaiak-, liburutegiko liburuak **alfabeto**-ordenan irakurtzen zituen hura. Imanol Zurutuza

Hizkuntza oro sinbolo-**alfabeto** bat da eta, baliagarri izan dadin, ezinbestekoa da solaskideentzat amankomuna den iragan bat; Juan Garzia

4 irud/hed

Gormutuen **alfabetoa** ikasteko metodo bat eskaini dit. Joseba Sarrionandia

Hizkuntza bat bere **"alfabetoa"** (hots, perpausak eraikitzeko erabiltzen diren sinboloen talde mugatua) eta bere perpaus gramatikalak aurkeztuaz defini daiteke. Itziar Laka

Lehendabizi hizkuntza formala zehaztu behar dugu, eta hori egiteko lehenengo urratsa **alfabetoa** zein den esatea da. New York **alfabeto** bat ere bada, zopa-letra bat. Askoren artean

Lehen ere esan dut New York badela **alfabeto** bat ere, letraz osatua. Harkaitz Cano

QLren azpihizkuntza logiko desberdinak kontsidera ditzakegu horretarako **alfabetoan** azaltzen diren konstante-sinbolo, funtzio-sinbolo eta predikatu-sinboloen azpimultzoak zehaztuz. Askoren artean

Batzuetan beste sinbolo logiko bat ere sartzen da **alfabetoan**, "•", identitatea errepresentatzeko. Askoren artean

Aurreko definizioak erabili gabe, posible genuen hizkuntzaren **alfabetoaren** konektatzaileen multzoen artean aurreko guztiak sartzea, hau da, Askoren artean

5 ***alfabeto arabiar***

Turkia mendebaldeko zibilizazioan integratzearren, erreforma sakonak egin zituen: **alfabeto arabiarraren** ordez alfabeto latinoa ezarri zuen. Berria - Mundua

6 ***alfabeto aramaiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Sogdianerak, idazketa sistema ezberdinak erabiltzen zituen, guztiak, aramear alfabeto edo **alfabeto aramaikotik** zetozenak. ETC-entziklopedia

7 ***alfabeto daktilologiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Alfabeto daktilologikoa ere badarabil? esku ahurrean egiten da?. ETC-prentsa

Keinu hizkuntzaren osagarri moduan, bestetik, **alfabeto daktilologikoa** edo esku alfabeto dago. Sistema hau, berez, sistema ortografikoaren moldaketa bat da. ETC-entziklopedia

8 ***alfabeto erruniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Alfabeto errunikoa germaniar hizkuntzek latindar alfabetoa erabili aurreko alfabeto-sistema izan zen. Idazteko errunak erabiltzen zituzten, antzinako alfabetoko zeinuak zirenak. ETC-entziklopedia

San Ziriloren asmakuntza bezala, Ulfilasen alfabetoa zenbait iturri desberdinetatik mailegaturiko letren nahastea zen: 20 bat letra greko, bost bat letra erromatar eta bi letra **alfabeto errunikotik** hartuak edo Ulfilasek berak asmatuak. ETC-literatura, saiakera

9 ***alfabeto feniziar***

Cadmos arrebaren bila aritu zen buru-belarri, eta bilaketa horretan ziharduela **alfabeto feniziarra** Biblosen asmatua irakatsi zien greziarrei. Berria - Mundua

10 ***alfabeto fonetiko***

Hura **alfabeto fonetiko** guztien iturburu izan zen. Berria - Mundua

Horren adibide garbi dira hizkuntza afrikar zenbaiten ortografia sortu berriak, nagusiki, nazioarteko **alfabeto fonetikoa** erabiltzea izan delako, gainera, International African Institute erakundearen politika. Lourdes Oñederra

11 ***alfabeto greko***

Azkenak, **alfabeto grekoko** letren izenekin bataiatu dituzte. Berria - Gaiak

Gaztelaniaz idatzi nuen, baina **alfabeto grekoz**, amak aurkitzen baldin bazuen ere, uler ez zezan. Agurtzane Juanena

Era honetako hainbat mugimendu mota dira, eta **alfabeto grekoaren** arabera sailkatu dira: alfa mugimendua hedatze- edo uzkurtze-mugimendu bat da, beta mugimendua goian deskribatu den mugimenduari dagokio, eta hala segidan. Josu Zabaleta

12 ***alfabeto greziar*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Gauza jakina da hainbat idazlek euren lanak argitaratu zituztela bertan, grezieraz, edo **alfabeto greziarrean** idatzitako armanestieraz. ETC-prentsa

Eta nik esan nion, hitzak tentu handiz aukeratuz, bere zientzia-gizon arima laukia ez mintzearren, dena ez dela zientzia, ez duela denak formula matematiko perfektu bat, **alfabeto greziarreko** letrak enegarrenera eramanda. ETC-prentsa

Grezian, Asia Txikian, Mediterraneoaren ekialdean eta Egipton, grekoak jarraitu zuen hizkuntza nagusia izaten eta **alfabeto greziarra** gehiago erabiltzen zen. ETC-entziklopedia

13 ***alfabeto hebrear*** *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Bost urterekin heder eskolara joaten hasi nintzen, eta han ikasi nituen **alfabeto hebrearraren** lehen nozioak. ETC-literatura, saiakera

Ezaugarri horiek antzekoak lirateke hizkuntza guztietan, **alfabeto hebrear**, greziar, erromatar eta zirilikoan letren hurrenkera antzekoa den arrazoi beragatik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alfabeto hebrearra ikasi ondoren, eta hebreeraz irakurtzen ikasita (Erdi Aroan, Europako juduen hizkuntza jiddisha zen), torah ikasteari ekiten zioten. ETC-entziklopedia

14 ***alfabeto latindar*** *(corpusean ez dago; ETCn **52** agerraldi)*

XVIII. mendean "J" eta "U" letrak hartu ziren, eta oinarrizko **alfabeto latindarraren** 26 letrak ezarri ziren, gaur egun ezagutzen ditugun moduan. ETC-entziklopedia

Orokorrean, **alfabeto latindarretik** hartzen ditu, p letrarekin hasiz, eta ondoren q, r, etab., eta beharrezkoa edo komenigarria denean azpi-indizeak erabiliz. ETC-entziklopedia

Aaronek arbola zahar bat seinalatu zuen, eta Ernstek, bertaratzean, marka ahul batzuk sumatu ahal izan zituen enborraren azalean **alfabeto latindarreko** FK letrak osa zitzaketenak. ETC-literatura, saiakera

Denek zekiten kurdueraz, baina gutxi batzuek baino ez zuten menderatzen **alfabeto latindarra**, beren aldaeran -kurmanjieran- idazteko erabiltzen dena. ETC-literatura,

saiakera

Izan ere, hainbat alfabeto erabiltzen dira egun horretarako: Tifinagh zeinu sistema tradizionala, Nazioarteko Alfabeto Fonetikoa, euskarak ere darabilen **alfabeto latindarra**, edo idazkera arabiarra. ETC-prentsa

Hala ere, lorpenetako bat rashi alfabetoaren ordez **alfabeto latindarra** sartzea izan zen, judu-gaztelaniaren alfabeto gisa erabiltzeko egokitutako hebreerazko hitz multzoa. ETC-prentsa

Zenbait koderen berri izango du bisitariak, ondoren; **alfabeto latindarra**, braillea, keinu hizkuntza eta kode binarioak ezagutuko ditu. ETC-prentsa

Alfabeto latindarra ingelesarekin batera ikasi nuen, eta kurduok erabiltzen dugun berbera da. ETC-prentsa

Hitz hauek ulertu eta irakurriz gero, horrek esan nahi du irakurleak **alfabeto latindarra** menperatzen duela. ETC-prentsa

Ondoko taula alfabeto grekoa erakusten da, letra bakoitzaren euskarazko izenarekin batera; halaber adierazten da letra greko bakoitzari **alfabeto latindarreko** zein tekla dagokion teklatu arruntetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hori dela-eta, alfabeto zirilikoa erabiltzen duten herrialde eslaviarrak ortodoxoak dira, eta **alfabeto latindarra** dutenak, berriz, katolikoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

15 *alfabeto latino*

Izan ere, tigrina, Eritreako hizkuntza, silabikoa da, eta **alfabeto latinoa** ez zuten ezagutzen. Joxerra Garzia

Alfabeto arabiarraren ordez **alfabeto latinoa** ezarri zuen, hizkuntzan berean aldaketak egin zituen, kalifatoa bertan behera utzi eta laikotasuna ezarri zuen eta emakumeen eskubideak onartu zituen. Berria - Mundua

Nazio berriaren fundatzaileak -beste Kemal bat, Mustafá Kemal Ataturk-, kalifatoaren ordez erregimen presidentzialista ezarri zuen, **alfabeto latinoa** jarri eta emakumeei legearen aurreko berdintasuna onartu. Fernando Rey

16 *alfabeto ziriliko* *(corpusean ez dago; ETCn **120** agerraldi)*

Alfabeto zirilikoa (edo "azbuka", haren lehen letren antzinako izenengatik) sei eslaviar hizkuntzatan (bielorrusiera, bulgariera, mazedoniera, errusiera, serbiera eta ukrainera) eta Sobiet Batasuneko Asiako eta Sortaldeko Europako beste hizkuntza askotan erabilitako alfabetoa da. ETC-entziklopedia

1932an alfabeto latindarrean oinarritutako idazkera erabiltzen hasi ziren, baina 1938tik aurrera, Moskuko gobernuak aginduta, **alfabeto zirilikoa** nagusitu zen. ETC-entziklopedia

Errusiera **alfabeto ziriliko** berri eta modernoaz idazten da; 33 letra ditu. ETC-entziklopedia

Alfabeto zirilikoz idazten da bulgariera, errusiera bezala. ETC-literatura, saiakera

Adibidez, San Zirilok, bederatzigarren mendean eslaviar herrietan ibili zen greziar misiolariak, letra greko eta hebrearren egokitzapenez asmatu zuenaren ondorengoa da **alfabeto zirilikoa** bera (gaur egun oraindik Errusian erabiltzen dena). ETC-literatura, saiakera

Honela aldatu dira euskararen alfabetoarekin bat ez datozen 7 letra edo letra-multzoak, Euskaltzaindiak **alfabeto zirilikoa** euskarara aldatzeko transkripzio sisteman oinarrituta. ETC-literatura, saiakera

Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema. ETC-literatura, saiakera

Errusierara itzultzea zaila da oso, **alfabeto zirilikoak** sekulako arazoak sortzen dizkigulako guri, oraingoz, Interneten lan egiteko. ETC-prentsa

Moskuko metroan turista izatea ez da zeregin samurra: **alfabeto zirilikoa** menperatu ezean, ez da erraza unean uneko kokaleku zehatza jakitea. ETC-prentsa

Bulgariak euro hitza **alfabeto zirilikora** itzultzeko eskatzen du. ETC-prentsa

Hizkuntza naturaleko testu idatzien kasuan errusierak duen berezitasuna **alfabeto zirilikoa** erabiltzean datza. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hori dela-eta, **alfabeto zirilikoa** erabiltzen duten herrialde eslaviarrak ortodoxoak dira, eta alfabeto latindarra dutenak, berriz, katolikoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *arabiar alfabeto* *(corpusean ez dago; ETCn **67** agerraldi)*

Arabiar alfabetoa Asia eta Afrikako hainbat hizkuntzatan (adibidez, arabiera, persiera eta urdua) erabilitako idazkera da. ETC-entziklopedia

Errusieraz egiten den bezala, kirgizera ere alfabeto zirilikoa erabiliz idazten da, Txinan bizi diren kirgizistandarrek **arabiar alfabetoa** erabiltzen duten arren. ETC-prentsa

Tamalez, testuak amazigeraz egon arren, **arabiar alfabetoa** erabili behar dugu oraindik ere. ETC-prentsa

Hauetan, ikasleei **arabiar alfabetoa** erakusten zaie, Afrika Beltzeko edo Latinoamerikako dantzak ikasten dituzte edo ijitoek flamenkoa ezagutzeko aukera ematen diete. ETC-prentsa

Kurmanjiarrek osatzen dute gehiengoa, beraz, zaila litzateke hogei milioi lagunek **arabiar alfabetoa** ikastea. ETC-prentsa

Espraiz orbanduta ageri dira **arabiar alfabetodun** seinaleak errepide bazterretan. ETC-prentsa

Soraniera, berriz, **arabiar alfabetoz** idazten da, eta Iraken eta Iranen hitz egiten da. ETC-prentsa

Arabiar alfabetoaren hamargarren letra, 88 zenbaki atomikoa duen elementu kimikoaren ikur laburtua, Fiji Uharteetako Errepublikaren eskualde bat, euskal poeta onenaren siglak, baina, hala ere, gurutzegrametan huts egin ez dezakeen jainko egiptoarra. ETC-prentsa

Zergatik otomandar turkiarrek abandonatu zuten **arabiar alfabetoa** 1928an? ETC-literatura, saiakera

Zirilikotik eta **arabiar alfabetotik** transkribatzeko oinarri batzuk ezarri ziren, eta Txinako, Indiako eta beste hainbat tokitako izenekin nola jokatu erabaki. ETC-literatura, saiakera

18 *armeniar alfabeto* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Armeniar alfabetoa ("Hayoc' grer" edota "Hayoc' aybowben") armeniera idazteko alfabeto bat da. 405ean Mesrop Mashtots armeniar hizkuntzalari eta elizgizonak garatu zuen. ETC-entziklopedia

Urteak **Armeniar alfabetoaren** lau letra bidez konposatzen dira. Ondorengo taulan adierazten da **Armeniar alfabetoaren** letren eta balore numerikoen arteko erlazioa: ETC-entziklopedia

19 *asiriar alfabeto* *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Asiriar alfabetoa I. mendean aramear alfabetotik eratorritako abjad motako antzinako kontsonantezko eta piktogramarik gabeko alfabetoa izan zen. ETC-entziklopedia

Hasiera batean **asiriar alfabetoan** oinarritu zela uste zen, baina hizkien ordenak greziar alfabetoarena jarraitzen du, 36 hizkiz osatua baitago, horietatik 21 greziar alfabetotik datoz, beste 11 hizkik greziar estiloa dute eta 4 hizki **asiriar alfabetotik** datoz. ETC-entziklopedia

20 *esku alfabeto* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Esku alfabetoa edo alfabeto daktilologikoa zeinu hizkuntzaren osagarritzat erabiltzen den alfabetoa da. ETC-entziklopedia

21 *euskal alfabeto*

Euskal alfabetoa hogeita zazpi letrak osatzen dute: a, b, c, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, ñ, o, p, q, r, s, t, u, [...]. Iñaki Arranz

22 *feniziar alfabeto* *(corpusean ez dago; ETCn **46** agerraldi)*

Feniziar alfabetoa abjad motako antzinako kontsonantezko eta piktogramarik gabeko alfabeto izan zen. ETC-entziklopedia

Alfabeto grekoa, berriz, ez da hain zaharra eta **feniziar alfabetotik** eratorria da. ETC-entziklopedia

23 *georgiar alfabeto* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Georgiar alfabetoa georgiera eta beste kartveliar hizkuntzak (mingreliera, svanera eta, zenbaitetan, lazera) idazteko erabiltzen duten alfabetoa da, batzuetan osetiera eta abkhazera idazteko ere erabili zutena. ETC-entziklopedia

24 *greziar alfabeto*

Greziar alfabetoak elementu abstraktu horiek bereiztea iritsi zuen, eta, lehen esan dugunez, bereizketa horretaz jabetzeak oso azterketa maila bikaina eskatzen zuen. Isabel Arrigain

Errusiar Inperioan, errusiera eta **greziar alfabetoaren** eslaviar bertsioaren errusiar aldaera handia. Iñaki Mendiguren

25 *hebrear alfabeto*

Hebrear alfabetoaren letra hori (-) -in deitzen da eta euskarazko x-ak goxo edo horixe hitzetan daukan balio fonetikoa dauka. Xabier Kintana

26 *korear alfabeto* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Urriaren 9a - Korea: lehen aldiz, **korear alfabetoa** aurkeztu zen gortean, txinatar ikurren ordez. ETC-entziklopedia

27 *latindar alfabeto* *(corpusean ez dago; ETCn **188** agerraldi)*

Latindar alfabetoa gaur egun munduan gehien erabiltzen den alfabetoa da, 2500 milioi pertsona baino gehiagorekin. ETC-entziklopedia

Diasporarekiko haustura areagotzeko, **latindar alfabetoaren** erabilera nagusitzea nahi izan zuten "hebrear" berriek. ETC-prentsa

Balutxera arabiar-pertsiar alfabetoz idazten da, nahiz eta diasporako idazle askok **latindar alfabetoa** erabiltzen duten. ETC-prentsa

Lehenengoa **latindar alfabetoz** idazten da, eta bigarrena arabiarraren bidez. ETC-prentsa

Kurmanjiera **latindar alfabetoz** idazten da, eta soraniera arabiarraren bidez. ETC-prentsa

Haüyren liburuak **latindar alfabetoan** eta erliebean zeuden idatzita. ETC-prentsa

Latindar alfabetoaren mesedetan turkiarrek duela gutxi arabiar alfabetoa uztea ildo beretik esplikatu behar da. ETC-literatura, saiakera

Agentzia horien (eta kartografo guztien) arazo handienetako bat da erabakitzea nola eman behar den jatorriz **latindar alfabetoan** ez dagoen izen bat **latindar alfabetoan**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina gero eta etorkin gehiago ari dira iristen oso bestelako hizkuntza-inguruneetatik, non sarri ez baita **latindar alfabetoa** erabiltzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alfabeto bat** (11); **alfabeto bat ere** (3); **alfabeto berria** (3); **alfabeto fonetikoa** (3); **alfabeto hau** (3); **alfabeto latinoa** (3); **alfabeto osoa** (3); **alfabetoa eta** (3); **alfabetoan barrena** (3); **alfabetoaren arabera** (5); **alfabetoaren letra** (3); **alfabetoko hogeita** (3); **alfabetoko lehen** (3); **alfabetoko letra** (6); **alfabetoko letrak** (3); **bere alfabetoa** (3); **eta alfabeto** (6); **eta alfabetoaren** (3); **euskal alfabetoa** (3); **gormutuen alfabetoko** (8); **jaunaren alfabeto** (3); **nazioarteko alfabeto** (3); **nazioarteko alfabeto fonetikoa** (3)

---

alfaki *iz* herri musulmanetan, legearen doktorea.

-Zuzentasunez mintzatu zara, bai horixe -esan zion **alfakiak**-, baina mihiak galdu zaitu, zere argudioak zure kontra baitaude eta kalte egiten baitizute. Patxi Zubizarreta

Pertsona batek behin kontatu zidan, emakumetan, egundo ez zuela ikusi Sayyidat Al-Masayj baino **alfaki** burutsu, zuhur eta jakintsuagorik. Patxi Zubizarreta

-Oi, ene aita, Jainkoak gupidatu zintuen **alfaki** ohoragarri hori! Patxi Zubizarreta

---

alfalfa ik **alpapa**.

---

alfanje *iz*

Zuzentzaileak, gaur egun ia almuedanoa bezain itsu, purrustada egin zuen, gaizki lo egin eta amets nekosoetan dabilenaren antzera, setioa, ezpata erraldoi, **alfanje** eta habail balearrak nahasten dituen ametsetan ibili eta, iratzarri delarik, [...]. Jon Alonso

Horietako batek eskuan **alfanje** ikaragarri bat zeraman, odolez zikindua; besteak, sastakai dirdaitsu txiki bat. **Alfanje** zorrotza zuen gizona ahari bat larrutzen den bezala larrutzen ari zen presoa. Fernando Rey

Oihal urdinezkoak ziren era berean galtzak, eta kolore berekoa burukoa; datil-antzeko oskiak oinetan, eta mairu-**alfanjea** bular-zeharkako ezpata-uhalean. Patxi Ezkiaga

Alfanje: aho bakarreko sable kurbatua. Patxi Ezkiaga

---

alfanumeriko *izond* zenbakiek eta letrek osatua.

"Datu teknikoak, mesedez: marka, modeloa, serie edo identifikazio zenbakia...", eta berak, jolasari jarraituz, pistolan argibide horien bila, "Star bat...", erantzuten die, eta kode **alfanumeriko** bat izan daitekeena irakurtzen; "zein ekintzatan erabiliko da?", eta soldaduak zalantza egiten du une batez, eta gero [...]. Iñaki Iñurrieta

---

alfarero *iz* buztingilea.

Batzuek esango dute aukeran txikia dela, doi-doi pasatzen baititu ehun eta hirurogei zentimetroak, baina bere gorputza leun-leun doa oinetatik buruko ileraino, eta esan liteke **alfareroak** buztinezko ontzi bat egiten duen bezala izan zela neska hau egina. Bernardo Atxaga

---

alfarotar *izlag* Alfarokoa, Alfarori dagokiona; Alfaroko biztanlea.

Alfarotarrak: 24. Herria

---

alfeñike *iz* gorpuzkera ahul edo maskaleko pertsona.

Alfeñike: gorputz ahuleko. Patxi Ezkiaga

Gauza berria al da ba agian, zaldun ibiltari bakar batek berrehun mila gizoneko gudarostea desegitea, denak bat eginik zintzur bakarra izan balute edota **alfeñikez** eginak izan balira-edo? Patxi Ezkiaga

---

alfer *(orobat **alper** g.er.)* **1** *izond/iz* lan egin nahi ez duena. ik **nagi**.

Zuloak ez zitzaizkion inoiz aski sakonak iruditzen, eta zakar-zakar tratatzen zuen, nagusiak langile **alferra** bezala. Karlos Zabala

Iraultzaile usteko funtzionario **alfer** eta irakasle txarrak. Xabier Mendiguren Elizegi

Uneoro konparatzen zituen ametsetako seme-alaba eredugarri haiek bere benetako seme-alabekin, seme-alaba **alfer**, zabar eta ez-erneak baitzituen. Fernando Rey

Hor aurkituko dugu lurjabe zabar arduragabea, etxekoandre goganbehartsua, gazte festazale txoriburua, lurjabe zekena, administratzaile **alferra**, funtzionario ustela, agintari zorrotz errukigabea, aberats okitua, burokrata grisa. Jose Morales

Jende **alfer** eta maltzur-gaiztoa elkartu zitzaion, eta menpean hartu zuten Salomonen seme Roboam. Elizen arteko biblia

Oraindik ez duk hire lana ikasi, alemaniar **alfer** horrek? Jose Morales

Altxa hadi, bada, **alfer** hori, eta hoa atez ate janari-hondarrak eskatzera. Askoren artean

Zeinen errukigarriak ziren biak, Flora eta bera alegia, patuak ni bezalako **alfer** bat sartu zielako etxean. Ramon Saizarbitoria

Erregeari, **alfer** samarra baitzen, egokiagoa iruditzen zitzaion ilea luzatzen uztea lepoa garbitzea baino. Xabier Olarra

Ikazkin muturbeltz **alfer** tripazain eskazale honen moro traza. Patziku Perurena

Haietako batzuk, esan ohi denez, gibel-handiak ziren, hau da, ezer egingo badute ostikoka altxarazi behar izaten diren horietakoak; beste batzuk, berriz, **alfer** zuriak ziren, zabal eta zabar etzanda egoten ziren beti. Jose Morales

- **Alfer** alaena, jaiki hadi! ez duk lanik, ala? Aingeru Epaltza

Mujikak **alfer** hutsak dira, lanerako gogorik ez, taberna beste pentsamendurik ez buruan. Jose Morales

Alferkerian ohitzen dira eta hor ibiltzen dira etxez etxe; eta, **alfer** ez ezik, berritsu ere bihurtzen dira, non zer jakingo eta behar ez denaz hitz egiten ibiltzen direlarik. Elizen arteko biblia

Ingalaterran lan egiteko gauza izan eta nahi ez duenari **"alfer** amorratua" deitzen diote. Xabier Olarra

Gobernuan banintz, akabatuko nikek pobre gisa kontsideratzen diren **alfer** zorritsu horiekin: karrikak garbi litezkek eta jendeak lanean balekebale! Itxaro Borda

Langabeak gizartearen bizkar gainean lasai-lasai bizi direlako ideia biziki presente dago, langabeak ororen buru **alfer** ziriak liratekeelakoan. Berria - Harian

Alferreko txatarra mordo ikaragarri bat besterik ez dago hemen, kilometrotik kilometrora hondatuz doala, azkoinak, torlojuak, txapa puskak galduz doala, herri hau, exodo harrigarriro **alfer** batean, ezerezerantz garraiatzen duena. Josu Zabaleta

Alfer eta loti izan nahi badu, orduan zigorra eman behar zaio asto gaizto eta **alferrari** bezala. Askoren artean

Zakur **alferra**, kukusoz beterik. Gotzon Garate

Baina nik ez dut nahi nire semea **alferra** izaterik." Bizkarra eman eta etxe barrura itzuli zen. Bernardo Atxaga

Langile zintzoa zen, hau da, ez **alfer**, ez zurrutero, ez gautxori. Joseba Urteaga

Alferrak nahi, bai, baina lortu ezin; saiatuaren gogoa asebetea izango. Elizen arteko biblia

Euskal-Herritik urrundu buhamiak denetan untsa gobernatzen zirela, etzirela ohoinak eta **alferrak**, fama hala bazuten ere, bainan onestak eta langileak, eta Paueko prefetak hala nahi bazuen denak ere gibelerat itzultzen ahalko zirela. Herria

Ateak orpoan bira, **alferrak** ohean. Elizen arteko biblia

Hura baino **alferragoa** eta berekoiagoa oraindik; inoiz ez zuen ezer egin nahi izan, ez ikasi ez lan egin, eta Estatuko bulego batean sartu zuten. Josu Zabaleta

Euskaldunek ez dugu **alfer** famarik hor gaindi, beharrak joak direlarik, eta desterrurat lerratzen. Herria

Idazlearen herrikideek, bahiarrek, **alfer** sona dute. Berria - Kultura

Denek helburuak korapilatu zituztela nago pentsatzen: **alfer** koadrila izutzea eta partida irabaztea nahasi zituztela, alegia. Berria - Kirola

Alfer gaiztoan egon nintzen ni Angeloren argibideren baten zain, nire nondik norakoan lagunduko zidan zerbaiten esperoan. Anjel Lertxundi

2 *izond* ia ezertarako balio ez duena; fruitu edo ondoriorik gabekoa.

Ama alargun txoriburu baten maitale **alferra**. Josu Zabaleta

Badirudi begi batetik ez duela ikusten, eroria-edo dauka; begi **alferra** izango du. Pako Aristi

Esku **alferra** pobre, esku abila aberats. Patxi Zubizarreta

Alferkeriari ihes egiteko, egunero bazkalostean lanen batean jardun ohi zuen anaiekin batera, honela berak eta anaiek otoitzaldian Jainkoaren laguntzaz lorturiko irabazia hitz **alfer** eta hutsalengatik gal ez zezaten. Askoren artean

Elizan bezala hasi dute partida bi pilotari adiskideek: hitz **alfer** bat ez-eta oihu itsusi bat gabe. Herria

Eztabaida espekulatibo **alferra**, erantzuna edozein izanda ere. Joxe Azurmendi

Jean Claudek moztu egin zion bere jario **alferra**. Xabier Mendiguren Elizegi

Zertako hainbeste alferlan, zertako hainbeste irabazi **alfer**, gero berriz alferrik hainbeste gastatzen aritzeko? Patziku Perurena

Zertako hainbeste alferlan, zertako hainbeste irabazi **alfer**, gero berriz alferrik hainbeste gastatzen aritzeko? Patziku Perurena

Konrad -bere jaidura eta bakardade goizegiko baten gorabeherek bultzaturiko gizaki guztiak bezala- isekaz mintzo zen munduari buruz, erdeinu kutsu batez nahasturiko jakinmin **alfer** batez. Xabier Olarra

Badakit ordu hauetan mundu-konponketa **alfer** asko egin ohi dela, bihar bertan gogoratuko ez ditugunak. Pako Aristi

Buruan hitz batzuk bilatzen saiatuko zen, izeba kontsolatzeko, eta hitz kamuts eta **alfer** batzuk baizik ez zituen aurkituko. Irene Aldasoro

Neure onetik ateratzen ninduen pentsatzeak tresna hori, noizbait Beatrizen ahots berreskuraezina sorrarazi zuen bera, Carlos Argentino Marisaren lagun gizonezkoek erakusten zizuten sinpatiaz gogoratzen zara eta Marisaren irribarre **alferraz**, begirada triste ironikoaz. Juan Garzia

Daneri haren iruzur-kexu **alfer** eta apika suminduak jasotzeraino makur zitekeela. Juan Garzia

Hamaika sineste zelebre eta ahalegin **alferren** berri badakar J. G. Frazerrek, bere "Urrezko Abarra" liluragarrian. Patziku Perurena

Herrialde edo kausa baten alde hiltzea heroismo-ekintza **alfer** eta zentzugabe bihurtzen da ziur froga daitekeenean herrialde hori patriotarekin batera galduko dela, eta kausa bere jarraitzailearekin batera, dena barne hartuko duen hondamendian. Iñaki Mendiguren

Era guztietako botika miragarriak eskaintzen direla gaur egun interneten bidez, eta iruzurra baino ez dagoela horren atzean gehienetan, kalte baino ez diezaiokeela egin horrek gaixoari, esperantza **alferra** piztu, bere osasunaren kaltetan. Imanol Zurutuza

Zoriaren kontra borrokatzea zein **alferra** zen sentitu zuen: hori zuen urteek utzi zioten jakituria-zama. Irene Aldasoro

Milaka kiloka botatzen den harritza **alferrari** atxikiriko metal zilarkara noblezko bi kiloen xarma, ez da oraindik iraungi. Juan Garzia

Pentsatu bezala, lau hilabete **alferren** ondotik, nire giltzak ez zuen arroztu eskaintzen zitzaion xulo laguna. Aingeru Epaltza

Mutilak, Louren belaunen gainean, zorabio batean ikusi zuen hiria, tximiniek eta mastek marrazten zuten kai isil **alferren** silueta urdin iluna. Koro Navarro

3 (izenlagun gisa)

Alfer ahalegina, gaizki ulertua, zeren irudikapen bati alegoria zentzua emateak berak erakusten du argi eta garbi irudikapen hori alegiatzat hartzen dela, inolako egiazkotasun ez fantasiazkorik ez errealik gabeko alegiatzat, eta nolabaiteko egia moralen baten frogantza izateko dela egina. Josu Zabaleta

Alfer-gurpil behin eta berrirokoan itzulika gabiltza, horra, ostera ere, temati, gau-tximeleta argiak liluratua nola. Juan Garzia

Hala eta guzi, itsu paperan ibilitako **alfer** jende pikaroa erruz izan da, maiz ageri baita "bagabundos y ciegos fingidos" delakoen auzia paper zaharretan. Patziku Perurena

Interesatzen zitzaidana lortu ezean, gutienez ere ez nuen **alfer**-bidaia egin nahi. Aingeru Epaltza

Onestasun handiagoz bizi eta **alfer** hitzak baztertuz lan egin. Askoren artean

Ama horretan ari zen bitartean, amonak albotik jardungo zuen, **alfer** hizketan askotan, baina bizitzarako lagungarri zitezkeen kontuak aletzen urritan. Pako Aristi

Martxoko lore, **alfer** lore. Pako Aristi

Hala ere, hainbat lan egin zuenak beti eraman du, itzala nola, **alfer** fama halako bat gainean. Anjel Lertxundi

4 (adizlagun gisa)

Nicolas Sarkozy bere aldetik ez da **alfer** egona. Jendea aise egon litakeela lanean batere ari gabe! **Alfer** egonez gostuan bizitzeko moldea segurtatua izaitekotan. Herria

Segur ez dira **alfer** egonak eta ez daude **alfer**! Herria

5 (izen gisa)

Itxura guztien arabera, jaun kondea bakarrik etorri da, eta leinuen arteko guduez, isuritako odol guztiaren **alferraz**, bakea lortzeko aukerez hitz egin nahi du Bereterretxerekin. Anjel Lertxundi

6 ***alfer-alfer***

Sakrifizio **alfer-alferra**, zernahi jainkok zapuztua. Xabier Olarra

7 ***alfer-alferreko***

Beharko, hala ikusita behintzat, gure heriotza **alfer-alferrekoak** ez zian zirrara makala eragingo jendearen irudimenean, eta estutuko zitzaizkiean bai mamiak, horratik, denei. Josu Zabaleta

Alfer-alferreko berriketa duzu, beraz, sentimenen aurka prestatzen eta bideratzen den guztia. Xabier Amuriza

Baina gizakia maitagogo izanik, ezagutari izanik, **alfer-alferrekoa** da gure ezagumenaren abstrakzioa egiten saiatzea, ezagumenez eginiko ezagumenaren abstrakzioa izango litzateke eta. Jenaro Garate

Baina **alfer-alferrekoak** ere ez ziren izan Eldaseko egonaldiak: arrasto bat aurkitu zuen Eldaseko Tabucchi entziklopedia batean. Unai Elorriaga

8 ***alfer-alferrik***

Agindu zorrotz harekin eta zaindari neraman zakurrarekin **alfer-alferrik** nuen bisita hura, baina ezin esango nion hori Aita Arbizuri. Xabier Mendiguren Elizegi

-Hemen denbora **alfer-alferrik** galtzen ari haizela iruditzen zaidak niri ere - esan zuen Sonjak. Anton Garikano

Horregatik eginarazi dizu bide luze hori ekuazio aljebraikoetan zehar; berak demostrazioak isilean zergatik gorde zituen zuri jakinarazteko; zuri esateko, alegia, argitaratu nahi izan balitu zapuztaldi ederra hartuko zuela **alfer-alferrik**. Jon Muñoz

Kulparik gabe kriminalizatutako gazteak daude; baita **alfer-alferrik** larritutako gurasoak ere, euren seme-alabek kalamua kontsumitzen dutelako. Berria - Euskal Herria

Mila sindikatu eta elkarte eratuta ere, **alfer-alferrik** izango delakoan nago. Berria - Kirola

Pericles-ek, duela ia 2.500 urte, esana zuen: **Alfer-alferrik** da ideia onak edukitzea, gero transmititzen ez badakizu. Txema Ramirez de la Piscina

Begira zenbat eta zenbat fotokopia eginarazten didan **alfer-alferrik**, ni bere bulegotik ahalik eta urrunen edukitzeagatik: garbi dago ni gainetik kendu nahian ari dela. Joxan Elosegi

Abere horiek landareen gisa bizi daitezela makurkeriarik doilorrenean: **alfer-alferrik** mesprezatuko ditugu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sineskeriak? Zigarroa itzalita daukadanez, eta patriketan **alfer-alferrik** bila ari naizenez. Josu Zabaleta

-Hemen **alfer-alferrik** ari zara, etxe pobrera etorri zara eta pobreok ez dugu deus ere botatzen, daukagun pizarra ongi gorde behar dugu - erantzun dio etorri berriari burua mugitzeari utzi gabe. Pello Lizarralde

Mutikoak eskopeta osoa hustu du, **alfer-alferrik** ordea. Koro Navarro

Eta **alfer-alferrik** izan ere! Jon Muñoz

Hitz eta pitz aritu haiz, baina **alfer-alferrik**. Patxi Zubizarreta

Alfer-alferrik egin zuen bidaia hura guztia. Xabier Aranburu

9 *alfer-alferrik egon*

Pitermanekin **alfer-alferrik dagoela** diote batzuek. Berria - Kirola

Zürichen alfer- **alferrik nengoen**; beraz, egun berean (O. irakaslearekin Odéoneko berriketaldia egin ostean), Kloten aldera jo nuen, hegazkinez jarraitzeko. Joxe Austin Arrieta

Bere gurasoen etxeko bizimodua kontatu dit, merkatu beltzeko historiak eta alfer- **alferrik dagoela** iruditzen zaiola. Josu Zabaleta

10 *alfer-alferrik izan*

-Alfer-alferrik da - erantzun zuen agureak -. Koldo Biguri

Egoera horretan Liesek ezin du behar bezala lan egin, eta **alfer-alferrik dira** etengabe ematen dizkioten eskola partikular guztiak. Josu Zabaleta

Bejondiela, **alfer alferrik baita**, modernokeria pinpirin orok muinak jantxeak dauzkan jendaje honekin tajuzko arrazoiketan hastea. Patziku Perurena

Pericles-ek, duela ia 2.500 urte, esana zuen: **Alfer-alferrik da** ideia onak edukitzea, gero transmititzen ez badakizu. Txema Ramirez de la Piscina

Aurrerantzean ez zizula besterik idatziko eta zuk ere **alfer-alferrik izango** zenuela hari idaztea. Xabier Mendiguren Elizegi

Alfer-alferrik zuan, lehen batere ez zegoena erotu egiten zian eta. Anton Garikano

11 *alfer egon*

Segi bezate segi horgo arduradunek biharko pilotarien prestatzen, **alfer egoiteko** orde. Herria

Segur ez dira **alfer egonak** eta ez daude alfer! Gero, euskal ohidureri azkar atxikiak direla eta ere girixtino sinesteari. Herria

Nahiz eta osaba Joanikotek erraiten zidan ezen obren bidetik obratu zituztela katolikoek bekaturik handienak, eta obrarik ez egitea zela, halatan, obra zezaketen obrarik jainkozkoena, hobe zelako, ororen buruan, **alfer egoitea** ezen ez gaizki egitea. Joan Mari Irigoien

Hobe Andrés ere ez balego, bakarrik egoteko beharra duzu, baina bestalde **alfer zaude** oso. Lourdes Oñederra

12 *alfer gaiztoan*

Alfer gaiztoan egon nintzen ni Angeloren argibideren baten zain, nire nondik norakoan lagunduko zidan zerbaiten esperoan. Anjel Lertxundi

13 *alfer gorotz*

Lepoa egingo nuke Txitxikovek erosi dituen mujik horiek, lapur hutsak eta mozkor porrokatuak ez badira, **alfer gorotzak** eta liskarzale amorratuak direla. Jose Morales

14 *alfer gurpil* gurpil zoroa.

Alfer-gurpil behin eta berrirokoan itzulika gabiltza. Juan Garzia

15 *alfer lan* *(orobat **alferlan** g.er.)*

Han gure asmoak hankaz gora, eta han berean gure zuhurtzia guztia **alfer-lan** bihurtua... zeren eta gainean baikenuen orduko otsoa! Joan Mari Irigoien

Alfer lan hark haserre jartzen ninduenez, eta begiak ilunbetara erabat ohitu zitzaizkidanez, argiago ezin ikusiko nuela etsi, eta idazmahaira joan nintzen. Josu Zabaleta

Amodioaz hitz egitea **alfer lana** da. Patxi Zubizarreta

Judua haiz, **alfer lana** duk giza naturaren legeen kontra joatea, horixe esaten zidaten hots guztiek aerodromotik bota nindutenetik. Anjel Lertxundi

Giza naturaren legeen aurka jardutea **alfer lana** dela ulertu berria duenaren antzera, alfer-alferrikakoa. Xabier Olarra

Eskarmentuz dakit haiekin edo kutxa blindatu bateko itxitura automatikoaren gailuarekin arrazoitzera saiatzea maila bereko **alfer lana** dela. Aingeru Epaltza

Alfer-lana izango nuen nik galtza barrenak jasotzea, lokatzez beteak bainituen ordurako. Juan Luis Zabala

Galderak egitea, **alfer lana**! Txillardegi

Ez zuan **alfer lanean** ari, eszenategia artaz prestatzen baizik. Aingeru Epaltza

16 *alfer lur* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

1969ko Euskadi eta Espainia oro har, **alfer lurrak** ziren. ETC-prentsa

Haren bidez adierazi zion Planckek ereingarri bihurtu zituen fisika kuantikoaren lur berrietan -lehen **alfer-lur** zirenetan- lore gutxi batzuk biltzeko ahalegin xume bat besterik ez zuela egin berak. ETC-literatura, saiakera

Luberriak hedatu zirenean, hainbat padura, **alfer-lur** eta baso zerealentzako soro bihurtu ziren, bai eta -baina ez hainbeste- mahasti, olibondo, lekadun, frutarbola eta industrian erabiltzeko landareentzako soro ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *alfer solas* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

-Aski da, **alfer-solasean** ibili beharrean txukundu ezazu berehala 404 gela. ETC-literatura, saiakera

18 *alfer ziri* *(orobat **alferziri**)* *izond* alfer galanta.

Bizkitartean, langabeak gizartearen bizkar gainean lasai-lasai bizi direlako ideia biziki presente dago, langabeak ororen buru **alfer ziriak** liratekeelakoan: [...]. Berria - Harian

Halako **alferziririk**, gaineratu zuen, aurrera jarraituz. Anton Garikano

19 *alfer zotz*

"Nagusia ez da egonean egoten, gero!", hasi ziren esaten mujikak, eta garondoan hatz egiten zuten, herriko emakumeak etxaldea administratu zuen denbora luzean **alfer zotz** bilakatu ziren eta. Jose Morales

20 *alferrik* ik **alferrik**.

21 *alferrikako* *izlag* alferra, alferrekoa.

Alferrikako ahalegina izan ohi zen, ordea, arrazoi ematen zidanean ere -pertsona sentibera zelako Flora, eta txikitandik, umezurtz nintzelarik ama margaritetan ikusten nuela entzuteak hunkitu egiten zuelako-, esaten baitzidan bera sineskerietatik libre zegoenez, ez zuela beragatik nahi panteoirik, amagatik baizik. Ramon Saizarbitoria

Jaitsi zen aita gelatik bazkaltzera eta mahaia altuan jarria eta **alferrikako** dotoreziaz apaindua ikusi zuen; poza ematen zuen mahai hark poz gutxi eman zion Frantziskori. Askoren artean

Anaiaren batek **alferrikako** hitz hutsalen bat esaten badu, behartua bego bere errua berehala aitortzera. Askoren artean

Ezin izango dira beren jatorrizko bokaziora itzuli, beren bokazioaren arabera bizitzeko garaia **alferrikako** ikasketa hutsaletan galdu izanagatik. Askoren artean

Gehiegi luzatzen nintzen **alferrikako** azalpen aspergarrietan. Ramon Saizarbitoria

Lore bakarrik ere gabeko txarroaren ondoan, **alferrikako** pianoaren gainean. Juan Garzia

Azkenean, bere hoteletik goizeko 9etan pasatuko nintzela erabakitzera iritsi ginen, **alferrikako** "zuk nahi duzunean", "ez, zuk esan", "berdin zait" eta antzeko franko esan ondoren. Ramon Saizarbitoria

· Eskua patrikan sartu eta pizgailua atera zuen, belarri parean astindu ondoren pizteko bi edo hiru saio **alferrikako** egin, eta lurrera botatzeko. Ramon Saizarbitoria

Zenbakien serie naturalerako hiztegi infinitu bat, oroimeneko irudi guztiak gogoan hartuko zituen katalogo **alferrikako** bat · Ripiorik gabeko soneto bat izaten da, eskuarki, baina oso-osorik ripio hutsa dena: hots, sobrakin bat, **alferrikako** den zerbait. Juan Garzia

Alferrikako gertatu zitzaidan pentsatzea neuk ere, hura begiz hauteman eta hamar hatz azazkaldunez haztatzen nuen honek, ez nuela munstrotik gutxiago. Juan Garzia

22 ***alferreko*** *izlag* ia ezertarako balio ez duena.

Bakoitzak esan dituen **alferreko** hitz guztien kontu eman beharko du auzi-egunean. Elizen arteko biblia

Medikuaren eginkizuna da, era berean, **alferreko** tratamenduak baztertzea. Berria - Gaiak

Gainerako guztiak beharrezko ez diren errepikapenak, **alferreko** azalpenak, ezeztapen eta erantzun ziztrin eta hutsalak maiz, erretorika eta poetika jokoak baino ez dira. Xabier Kintana

Baliteke ohar hau hutsala iruditzea (ba al da giza fenomenorik historiaz kanpo gertatzen denik?), baina ez da **alferreko** gauza ohar hori esplizituki formulatzea. Josu Zabaleta

Alferreko lana iruditzen zitzaion hori. Unai Elorriaga

Drama ezin da antzeztu, bila ari diren autorea falta delako; eta, drama horren ordez, pertsonaia horien **alferreko** ahaleginaren komedia antzezten da. Josu Zabaleta

Beren harridura gora-behera, begibakarraren zortea inozotasunari zegokiona zela sinestaturik, borrokarik gabe joaten ziren norbere etxera edo lantegira, **alferreko** madarikaziotan. Felipe Juaristi

Halaxe gogoratzen zituen ospitalera egindako **alferreko** joan-etorri haiek. Imanol Zurutuza

Kemenez esan zien ez geratzeko gauean, ez zuela merezi, ongi zegoela eta **alferreko** nekea zela. Imanol Zurutuza

Erne ibiltzeko aholkatuz, ez galtzeko **alferreko** loaldian, heriotza lo betirakoa baita. Felipe Juaristi

Falzidiar Legea **alferreko** bihurtzen zen; izan ere, testamentugileak oinordekoaren alde jokatu nahi bazuen, honek ez zeukan Falzidiar Legearen beharrik; eta haren alde egin nahi ez bazuen, Falzidiar Legeaz baliatzea debekatzen zion. Iñaki Iñurrieta

Alfer-**alferreko** berriketa duzu, beraz, sentimenen aurka prestatzen eta bideratzen den guztia. Xabier Amuriza

· *(izenondo gisa)* Tomek buruari eragin zion ezetz adieraziz, eta haren aurpegiera goibelarengatik ohartu nintzen itxaropen **alferreko** batek eragin zuela nire iruzkin hura. Oskar Arana

Ilusioa estimatua izan da garai batzuetan, irudikapenaren xede desiragarri gisa, eta kritikatua beste garai batzuetan, helburu gaizto, engainagarri eta **alferreko** bezala. Josu Zabaleta

Azkenik, eztabaida luze eta **alferreko** franko egin ondoren, asmo gaziak bertan behera geratu ziren. Felipe Juaristi

Parisko jostun modakoari hainbat bisita **alferreko** egin ondoren [...] lortu nuen Luteziaren eta nire artean bi izakiren artean promes baten, are promes solemne baten baliokide den konfiantza hori sortzea. Matías Múgica

Bide biribil batean, tema atzeraezin eta guztiz **alferreko** batez jira eta jira dabiltzan zomorro gogotsu horiekin konparatzen zuen Hurtadok. Josu Zabaleta

Horrek ez du esan nahi Thuleko printzerik ez dagoenik, belaunaldiz belaunaldi zabaltzen den titulua baita, **alferreko** samarra, noski, praktikan. Felipe Juaristi

Maitemintzen al dira oraindik gazteak, ala, mekanismo hori dagoeneko obsoleto bihurtu ote da, **alferreko**, atzeratua, lurrunezko lokomozioaren moduan? Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alfer alferrik (86); **alfer alferrik ari** (6); **alfer alferrik da** (4); **alfer alferrik izan** (3); **alfer alferrik izango** (3); **alfer alferrikakoak** (4); **alfer bat** (4); **alfer bidaia** (8); **alfer bidaia egin** (5); **alfer egoiteko** (3); **alfer egon** (3); **alfer eta** (24); **alfer hori** (5); **alfer hutsa** (7); **alfer hutsak** (9); **alfer izan** (3); **alfer izan nahi** (3); **alfer koadrila** (3); **alfer lana** (13); **alfer lanean** (3); **alfer samarrik** (4); **alferra eta** (4); **alferra izango** (3); **alferra zen** (3); **alferrak dira** (3); **alferrak diren** (3); **alferrak eta** (4); **alferrak ez** (4); **alferreko gauza** (3); **alferreko lana** (9); **alferrekoa da** (6); **alferrekoa izan** (7); **alferrekoa izango** (4); **alferrekoa litzateke** (3); **alferrekoa zela** (6); **alferrekoak dira** (6); **alferrekoak direla** (3); **alferrekoak izan** (8); **alferrekoak izango** (3); **alferretan ari** (4); **alferretan izan** (3); **baina alfer** (13); **baina alfer alferrik** (10); **bezain alferra** (3); **da alfer** (6); **esperantza alferra** (3); **eta alfer** (18); **eta alfer alferrik** (8); **eta alferra** (7); **eta alferrak** (5); **eta alferreko** (8); **eta alferrekoa** (5); **eta alferrekoak** (3); **eta alferretan** (3); **ez da alfer** (3); **guztiak alferrekoak** (3); **hitz alfer** (6); **hitz alfer eta** (3); **hitz alferrak** (3); **jende alfer** (3); **lan alferra** (5); **zein alferra** (3)

---

alferez 1 *iz* maila behereneko ofiziala.

Alfereza zela; Erregularren **alfereza**, Alhucemako 8.eko Taborrean. Edorta Jimenez

Haiek ere ezustean harrapatu zituzten, sei-zortzi begiraleak, eta eskuz eta hankaz azkar eta gogorki lotu ondoren, kapitaina eta **alfereza** euren aurrean azal zitezela eskatu zuten, pistolen mehatxupean. Karlos Linazasoro

Alferez bat eta teniente bat zerrenda berdeekin. Anton Garikano

Alferez gradutik gorako lauzpabost militar eta Jexux joaten ziren automobil batean. Xabier Etxabe

Giltzerdi eragin zion mahaiko argazkiari, mutil gazte bat ageri zen irribarretsu, **alferez** jantzian. Koldo Izagirre

2 ***errege-alferez*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Erdi Aroan **errege-alferez** erregearen gudarosteen buruzagia izan zen. Horrela, Lope I.a Diaz Harokoa Antso III.a Gaztelakoarena izan zen, Gomez Gartxez Agoncillokoa Antso VII.a Nafarroakoarena, Martin Enrikez Lakarrakoa Karlos II.a Nafarroakoarena edo Cid Campeador Antso II.a Gaztelakoarena. ETC-entziklopedia

3 ***fragata-alferez*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

San Fernandoko Itsas Akademian sartu zen 1931n. Handik bost urtera amaitu zituen ikasketak, **fragata-alferez** mailarekin. ETC-entziklopedia

4 ***ontzi-alferez*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Galernaren traizioa egin eta gero alde frankistan borrokatu zuen: 1937ko martxoan adibidez, itsas armadako **ontzi-alferez** gisa ageri zaigu Espainiako aldizkari ofizialean. ETC-prentsa

1835ean Bilboko setioan parte hartu zuen eta **ontzi-alferez** mailarekin bere lehen itsasontzia lortu zuen: "Leopoldino" kanoilaria. ETC-entziklopedia

---

alfergura *iz* nagia, alfertasuna.

Ohartzen naiz hemen ere ez dela gauzarik gertatzen, eta eguzkia eta ilargia bera ere odoletan etzan direla **alfergurak** menderaturik. Iñaki Segurola

Askok esan didate nire nobela irakurri arte **alfergura** ematen ziela euskaraz irakurtzeak. Ana Urkiza

---

alferhaundi *izond adkor* alfer zuria.

Baina amak, hain minbera bera, hordi **alferhaundi** bat zela errepikatzeaz gain, hilarietako prediku-otoitza zela erran zigun, ofizianteak aldikal errepikatu ohi zuena. Jose Angel Irigaray

---

alferiz ik **alferez**.

alferkeria *iz* lanik egin gabe egoteko bizioa.

Aisia **alferkeria** bihur ez dadin, probetxuzko zera batez bete behar omen dugu aisia. Anjel Lertxundi

Lanbiderik ez dakitenek ikas dezatela, ez lansaria jasotzeko gutiziaz, etsenplua emateko eta **alferkeria** uxatzeko baizik. Askoren artean

Alferkeria -edo alfertasuna- aldarrikatu, amodioarekin lotu, edota erabateko herritarra edo erabateko kontsumitzailea izateko bidea dela esan, kontuak kontu, argi dago enplegurik ez izatea -eta enplegu kaxkarra izatea- arazo larria dela. Iñaki Heras

Reb Itchele maisuaren patioan eserita ematen zuen eguna, **alferkerian**, egurrezko ziri luzeak zorrozten, edo urtean behin bakarrik, Mendekosten, erabiltzen ziren paperezko apaingarriak mozten. Koro Navarro

Peter ez zait lehen baino atseginago gertatzen: mutil gogaikarria da, egun osoan ohean egoten da **alferkerian**. Josu Zabaleta

Estimatzen dut jende hori, pentsamendua deskantsuan eta **alferkerian** utzi beharrean, erraza egingo ez zaion liburu bat zabaldu duelako. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina, **alferkerian** ohitu haiz, eta nahiago duk eskean ibili sabel-zorro aseezin hori betetzeko. Juan Kruz Igerabide

Alferkeriara emanak izatez, ene jauna. Juan Garzia

Gorrotoa dio **alferkeriari**, eta anaiak lanean nahi ditu. Askoren artean

Bere soldaduak **alferkeria** arriskutsutik urrundu nahiz ha-si zen Arros ateraldiak antolatzen. Aingeru Epaltza

Ni neu, **alferkeriak** jota, ohearen gainean etzanda nengoen *dolce far niente* famatuan. Txillardegi

Ez nintzen inongo euskaltegitara ez gau-eskolatara joan, harrokeriaz baino gehiago **alferkeriaz**. Xabier Mendiguren Elizegi

Arratsalde batean, berandu, kalerako jantzita baina ohean etzanda nengoelarik, nire **alferkeriaz** eta nire borondate faltaz hausnarrean, beheko telefono publikoan deitzen zidatelako abisu eman zidaten. Koro Navarro

Gauza horiei buruzko xehetasunak alde batera utziz, ez **alferkeriaz**, noski, baizik eta ez nukeelako gehiegi luzatzeagatik inorentzat astuna izan nahi, orain erloju-mota eta irudi desberdinak azalduko ditut, nork asmatu zituen esanez. Santiago Iruretagoiena

Alferkeria, [...] Deabruak bekatu berrien haziekin esperimentuak egiteko eta bizio nagusien hazkundea bultzatzeko duen haztegi ereduzkoa. Xabier Olarra

Berezko **alferkeriaz** gainera, bazen justifikazio bat hartarako: artista izan nahi duenak, artista ustekoak, ez die kasurik egin behar halako zeregin domestikoei. Iñaki Iñurrieta

Eta gelara berriro berehala, inolako **alferkeriarik** gabe. Txillardegi

Dabidek, ordea, nik uste **alferkeria** hutsagatik, beti alde batera utzi nahi izaten zuen janzkeraren gaia. Patxi Zubizarreta

Nolabait ere, **alferkeria** gozo batean bizi ziren, halako bizimodu garesti, korapilatsu eta handinahikoan. Ander Irizar

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alferkeriara emanak (3); **alferkeriari ihes** (4); **alferkeriari ihes egiteko** (3); **alferkeriaz edo** (4); **beti alferkerian** (4); **edo alferkerian** (3); **eta alferkeria** (6); **eta alferkerian** (5); **etsai den alferkeria** (4)

---

alferki *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) adlag* alferrik, alferrean.

Bitxiki sekulan ezagunik gurutzatzen ez den hiri honek eskaini ostatu atipikoetan luzatzeko hondar zuhaila **alferki** korriturik. ETC-literatura, saiakera

Edo orenak **alferki** iragatera uzten zituen, emazte graziosen irriak oroit zituela. ETC-literatura, saiakera

Mutilak zebiltzan kalearen erdian bate-pilotak **alferki** kaleargien pean elkarri jaurtikiz. ETC-literatura, saiakera

Eta apeta kartsuki eta **alferki** eduki baten kasuan ematen zen manu hura, eskua ezartzea pertsonaren alde haren kontra, zein usantzak konsekratua baitu zigorraren egoitzatako. ETC-literatura, saiakera

Etxe honetarako itzuleran, urratsa neurtu artean, dorpea zait lehena, gehiago baizik ez azken asteak **alferki** emanik gogoetarik idatzi gabe. ETC-prentsa

Tira, **alferki** edo alferrik, ibili, ibili naiz behintzat. ETC-prentsa

---

alferkin *iz* harkaitzez mintzatuz, mineralizatu gabeko zatia.

"Halako lekuan" meategi bat bazen, zeinetik ehuneko 2 ateratzen baitzen baliozko zerik (ez zidan esan zer) eta ehuneko 98 **alferkinik**, eta hura alboko ibar batean deskargatzen. Juan Garzia

Alferkin horretan bazen nikelik: oso ere gutxi, baina hain zuen altua prezioa ezen aintzat har baitzitekeen nikel hori berreskuratzeko posibilitatea. Juan Garzia

Ideiaren funtsa **alferkinari** gas-egoeran erasotzea zen; halako lekua, berriz, Turinetik ordu gutxiko bidera zegoen. Juan Garzia

---

alferlan ik **alfer 7**.

---

alferraldi *iz* ezer egiteko gogorik gabeko aldia.

Ekainaren 19tik hona, 27 minutuko **alferraldia** irabazi du goizean jaikitzeko orduan. Pello Zabala

Ilundu arte ez zen etxetik mugitu, sekulako **alferraldi** batek oheari erantsita eduki zuen. Migel Angel Mintegi

Trauma baten antzera hartzen dute japoniarrek horrenbesteko **alferraldia**. Joxan Elosegi

Barregarriak ere badira, gero, **alferraldiaren** poderioz bururatzen zaizkigun burutazioak! Joxe Austin Arrieta

---

alferrean **1** *adlag* alferrik.

Uste dugu gauzak hobeki bideratuko genituzkeela eta **alferrean** egiten ditugun galderen ordez agian funtsezko beste honen, agian unibertsitariook inoiz ere egiten ez dugun beste galdera honen, erantzuna bilatzen saiatuko ginateke guztiak: zertarako behar dugu unibertsitatea? Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

2 *adlag* ezer egin gabe.

Alferrean zeuden, horma kontra bermaturik, beren artean berriketan edo plazatik igarotzen ziren lagunei hoska. Josu Zabaleta

-Alu arraioa! -esan zuen orduan Don Kijotek- Espainian barrena **alferrean** dabiltzan zaldun ibiltari guztiak, Erregek, pregoia jota, bere ingurura bildumaraztea besterik beharko al litzateke ba? Patxi Ezkiaga

Sarritan, **alferrean** ez egoteagatik, nekazari behartsuei laguntzen zieten beren soroetan, eta hauek gero ogia eman ohi zieten Jainkoaren maitasunagatik. Askoren artean

-Ze ari haiz hor **alferrean**. Aingeru Epaltza

---

alferreko ik **alfer 10**.

---

alferretan *adlag* alferrik.

Abertzaleen Batasunak konparazione dauka deus garbitasunik ez duela eman denen buru minixtroak eta hautetsiek **alferretan** egin dutela Pariseko itzulia. Herria

Bestalde, iduritzen zaiote ikerketa hori **alferretan** egiten dela ez deno xuxen finkatua Donibane Garaziko bazterbidea nundik eginen den. Herria

Alferretan ari da orain arrotz laguntza eske: haren asturua nihaurk dut erabakiko. Jon Muñoz

Bazituen herrian sei gizon elizatik arras urrunduak; otoitz eta entsegu frangoa ibili zituen hek bildu nahiz, bainan beti **alferretan**. Xipri Arbelbide

Lokian, bekokian eta masailean alaba musuak emanez, belarrira hitz samurrak errepikatuz, bizi guztian haren gogoa asetzen **alferretan** saiatu nintzela, harengan beti baldintzarik gabeko maitasuna **alferretan** bilatu nuela iruditu zitzaidan. Joxan Elosegi

Bihotza goxatzen didana da gure fraidetxeak 1943an egin duena, 18 hilabetez deportaturik egonez pagatu duguna, eta aitzina ordaindu beharko duguna bizi gareno -tenorea baino lehen hilen baigara- hori guzia ez dela **alferretan** egina izan ez oraiko ez gerorako, Elizarentzat eta Beloleko fraidetxearentzat. Marzel Etxehandi

Baina ene itzulittoa **alferretan** izan zen. Janbattitt Dirassar

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alferretan ari** (4); **alferretan izan** (3)

---

alferretsi, alferrets(i), alferresten du *iz* alfertzat hartu.

Izan ere, burumakur nekusan osaba, umiliatua, eta umiliazione hark mintzen eta kezkatzen ninduen, iduritzen zitzaidalako ezen duintasunaren bila joan zena duintasun arrastorik gabe itzuli zela, guztiek gaitzetsia, **alferretsia** eta beren baitarik egotzia. Joan Mari Irigoien

Guztiarekin ere, baldin auzia irabaz baneza eta gal baneza Belleroche, ez nuke asti hori **alferretsiko**. Jon Muñoz

---

alferrez *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)* **1** *adlag* alfertasunaz; alferkeriaz.

Etzaiztela eskuak **alferrez** egonak . ETC-prentsa

Pilotan haatik gazteak nausi partida erditaraz goiti, trenpu gaitzean Aguirre eta Jeannots nahiz etzauden **alferrez** urruñarra eta makearra ere. ETC-prentsa

Ez dakit txapa eskuratu dutenetarik zenbatek lotsaz edo **alferrez** sakelan daramaten oraindik. ETC-prentsa

MIKEL.- **Alferrez**? Egotekotan, lotsak egongo duk! ETC-telebista

• **2** *postpos*

Eta, beraz, hura nola irudikatu bilatzeari muzin eginez jarraitzen zuen, ez pentsatzeko **alferrez**, baina bai sufritzeko beldurrez. ETC-literatura, saiakera

Eguraldia da onez, / ta nik lana daukat errez, / hilabetean berdintsu dabil / ganbiatzeko **alferrez**. ETC-literatura, saiakera

Sukaldean bertan, bezperako afariko platerak garbitzeko **alferrez** harraskan utziak genituen, uretan, eta ur hura izotz bihurturik zegoen, kristalezko geruza zikin bat iduri. ETC-literatura, saiakera

Cope andreak burua jiratu eta ikusi zuen ez zuela hesia zeharkatu, traktoretik jaitsi eta atea zabaltzeko **alferrez**. ETC-literatura, saiakera

Erantzuteko **alferrez** geratzen nintzen askotan. ETC-prentsa

Garai batean, ama batek baino gehiagok egingo zuen errieta -gureak egiten zigun- ume barrabasok etxean argi gehiegi uzten genuelako itzaltzeko **alferrez**. ETC-prentsa

Oin-zolaren eta oinetakoaren artean ustekabean sartzen zaigun hartxintxar hori, askotan kentzeko **alferrez** bertan uzten duguna baina kendu arteko onik ematen ez diguna gehienetan. ETC-prentsa

Hori dela eta, edozein saio ikusten niharduela, iragarkiak ere irenstea tokatzen zitzaidan, jaikitzeko **alferrez**. ETC-prentsa

ANDONI.- (harrituta) Bi pauso emateko ere **alferrez**? Hau mundua aldrebesa! Zaharrak sasoian eta gazteak nekatuta! ETC-telebista

3 ***alferraren alferrez***

Alferraren alferrez, baina, etapa harrika bota zuten. ETC-prentsa

Zertarako? Ez kontatu ahal izateko? **Alferraren alferrez** mihia kamustu egiten da. ETC-prentsa

---

alferrezia *adlag* alfertasuna.

Bere oinarrizko erakaspenak egunero praktikan jartzen saiatzen nintzen bitartean, ohe kantoian sainduki natxikan Paul Laffarguen "**Alferreziaren** Gorazarrea" izeneko testua. Itxaro Borda

---

alferrik *(ETCn **17.903** agerraldi)* **1** *adlag* inolako ondorio edo emaitzarik gabe; arrazoirik edo beharrik gabe.

Hilda ez egotea: haserretu egingo zarete orduan -apur bat baino ez, familiaren susmorik ez pizteko-, ordubete galdu **duzuelako** alferrik. Unai Elorriaga

Alferrik ari zara: ez duzu deus ere asmatuko, Aristotelesek aurrez esan ez duenik. Joxerra Garzia

Urteak ez dira **alferrik** pasatu, ordea, eta emakumezko idazleen egiez konturatu naiz. Ana Urkiza

Pena da horrelako gizona bizimodua **alferrik** galtzen ikustea. Jon Muñoz

Urteak pasatu ziren arren, **alferrik** saiatu zen Garazi Enekoren mendeku gogoa galarazten. Martin Anso

Alferrik harrotu nuen boza. Aingeru Epaltza

Sortuz geroztik Maianak ez zituen orenak sekula **alferrik** higatu; beti bazuen zerbait egiteko, etxea garbi, poallak bazka, ardiak jetzi, sasoiko traholak, haurrak ala arrahaurrak. Itxaro Borda

Beren burutazioak helbide honetan topatu daitezke: 68ko maiatzeko errebolta ez zen **alferrik** gertatu. Txema Ramirez de la Piscina

Arren eta arren, **alferrik** erregutuko zion Iriondok. Iñigo Aranbarri

Baina berehala ohartu zen matematikak milaka urte dituela eta **alferrik** ari zela gogoeta horretan, Kristo aurreko greziar batek egin zuela gogoeta hori, askozaz modu brillanteagoan. Unai Elorriaga

Hortik datorke beharbada **alferrik** jardun izanaren sentipena. Joxerra Garzia

Patchworkezko edredoia lurrean dago erdi jausita eta Eberen gorputz uzkurtua **alferrik** saiatzen da izarapean beroa topatzen. Sonia Gonzalez

Tomek berogailuaren palankari eman zion **alferrik**, "ez du funtzionatzen". Iñaki Zabaleta

Baina ez daukagu gatzagirik, eta esnea mamitu ezean **alferrik** gabiltza. Jokin Urain

"Alferrik ari naiz: iraganarekiko izan dugun arreta-falta da, gurean, Abaxi bezain ohoin" Anjel Lertxundi

Jurisprudentziak ere, azken batean, baitaratu behar ditu norberak **alferrik** aurreikusi nahiko lituzkeen objektu guztiak edota iraizean egindako aurreikuste batek barneratuko ez lituzkeenak. Andres Urrutia

Alferrik saiatu da fabriken gainetik Gorbeia eta Anbotoko tontorrak asmatzen, Ibaizabalen haran luzearen amaieran. Urtzi Urrutikoeetxea

Nik min egin nion, zuk niri egin nahi didazun moduan, baina **alferrik** zabiltza! Xabier Paya

Beldur zen dena dela ez ote zuten botako, eta orduan nik dirua alfer-**alferrik** itzuliko nuen, bere seme-alabak desohoreaz markaturik haziko ziren, eta gu ez ginen inora iritsiko. Xabier Olarra

Alferrik espero izango dira Anneren testuan gogoeta sosegatuak, **alferrik** eskatuko zaio azaltzen dituen gaiekiko gogoetazko distantziarik. Josu Zabaleta

Alferrik ari ginen, gerra hotza. Koldo Izagirre

Baina ez zaitez **alferrik** kezkatu gosea pasa dudala esanez; denboraldi honetan ez dut behin ere goserik izan. Felipe Juaristi

Ondoan daukazun atsoaren abaniko-airea harrapatzen saiatu zara **alferrik** . Eider Rodriguez

Alferrik borrokatu naiz malenkoniaren kontra. Koro Navarro

Alferrik egin zuen zin apezpiku batek eman ziola zaflada batez sendotza, hamar urte zituelarik: patre-nostreak osorik esaten ere ez zuen asmatu. Juan Garzia

2 (bere horretan, aditz bati atxiki gabe)

Paretetako igeltsua funditua baitzen, nolanahika emanak izan ziren adreiluak agerian zituen elizatik hurbilena zen egoitza bakartira heltzean, atean "leep" oihukatu zuten, baina **alferrik** . Elena Touyarou

Izan ere, janariak behar du dena indartu, berritu eta zutoindu, janariak du dena iraunarazten; **alferrik** , ordea, zainek ezin baitiote behar beste eutsi eta naturak ere ezin baitu behar beste hornitu. Xabier Amuriza

Bi gizonetarik bat orrialde haiek jasotzen saiatzen da, baina **alferrik** . Harkaitz Cano

Biktima dohakabeak lepora eramaten zituen eskuak desesperazioz, hari luze sendo hura hautsiko zuelakoan, baina **alferrik** . Karlos Linazasoro

Orduantxe pentsatu dut: " **alferrik** ". Alberto Barandiaren

Bizpahiru izeko alargun edota neskazahar saiatu dira etxe hartan bizitzen, baina **alferrik** . Pako Aristi

Alferrik , ordea. Juan Kruz Igerabide

Sarak, egoera gorabeheratsuetan ohi zuen bezala, zentzuari eta sen onari men egin nahi izan zien: **alferrik** , ordea, mihiak zuhurtziari -eta kasik pentsamenduari berari- aurrea hartzen dionean. Joan Mari Irigoien

Begiak itxi eta gogoratu nahian jardun nuen; **alferrik** , baina. Joxe Austin Arrieta

Auzoko La Salleko ikastetxera eraman nindutenean estudiatzera, anai bat baino gehiago saiatu zen ni gogorxeago hartzen, baina **alferrik** . Joan Mari Irigoien

Begiak ingurura bihurtu nituen, baina **alferrik** , han ez baitzen argi izpirik ere. Alberto Ladron Arana

Alferrik baina: Iruñera bueltatu eta, hango pisura igotzen ari zela, Ama Birjina azaldu eta eskaileretan behera erori omen zen; ikasten saiatu eta txuri ikusten omen zituen liburuko orriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Beste behin astindu zuen eskua belarri parean, ea martxan jartzen entzuten ote zuen; **alferrik** ordea. Ramon Saizarbitoria

3 ***alfer-alferrik***

Agindu zorrotz harekin eta zaindari neraman zakurrarekin **alfer-alferrik** nuen bisita hura, baina ezin esango nion hori Aita Arbizuri. Xabier Mendiguren Elizegi

-Hemen denbora **alfer-alferrik** galtzen ari haizela iruditzen zaidak niri ere - esan zuen Sonjak. Anton Garikano

Horregatik eginarazi dizu bide luze hori ekuazio aljebraikoetan zehar; berak demostrazioak isilean zergatik gorde zituen zuri jakinarazteko; zuri esateko, alegia, argitaratu nahi izan balitu zapuztaldi ederra hartuko zuela **alfer-alferrik** . Jon Muñoz

Kulparik gabe kriminalizatutako gazteak daude; baita **alfer-alferrik** larritutako gurasoak ere, euren seme-alabek kalamua kontsumitzen dutelako. Berria - Euskal Herria

Mila sindikatu eta elkarte eratuta ere, **alfer-alferrik** izango delakoan nago. Berria - Kirola

Pericles-ek, duela ia 2.500 urte, esana zuen: **Alfer-alferrik** da ideia onak edukitzea, gero transmititzen ez badakizu. Txema Ramirez de la Piscina

Begira zenbat eta zenbat fotokopia eginarazten didan **alfer-alferrik** , ni bere bulegotik ahalik eta urrunen edukitzeagatik: garbi dago ni gainetik kendu nahian ari dela. Joxan Elosegi

Abere horiek landareen gisa bizi daitezela makurkeriarik doilorrenean: **alfer-alferrik** mesprezatuko ditugu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sineskeriak? Zigarroa itzalita daukadanez, eta patriketan **alfer-alferrik** bila ari naizenez. Josu Zabaleta

-Hemen **alfer-alferrik** ari zara, etxe pobrera etorri zara eta pobreok ez dugu deus ere botatzen, daukagun pizarra ongi gorde behar dugu - erantzun dio etorri berriari burua mugitzeari utzi gabe. Pello Lizarralde

Mutikoak eskopeta osoa hustu du, **alfer-alferrik** ordea. Koro Navarro

Eta **alfer-alferrik** izan ere! Jon Muñoz

Hitz eta pitz aritu haiz, baina **alfer-alferrik** . Patxi Zubizarreta

Alfer-alferrik egin zuen bidaia hura guztia. Xabier Aranburu

4 ***alfer-alferrik egon***

Pitermanekin **alfer-alferrik dagoela** diote batzuek. Berria - Kirola

Zürichen alfer- **alferrik nengoen** ; beraz, egun berean (O. irakaslearekin Odéoneko berriketaldia egin ostean), Kloten aldera jo nuen, hegazkinez jarraitzeko. Joxe Austin Arrieta

Bere gurasoen etxeko bizimodua kontatu dit, merkatu beltzeko historiak eta alfer- **alferrik dagoela** iruditzen zaiola. Josu Zabaleta

5 ***alfer-alferrik izan***

-Alfer-alferrik da - erantzun zuen agureak -. Koldo Biguri

Egoera horretan Liesek ezin du behar bezala lan egin, eta **alfer-alferrik dira** etengabe ematen dizkioten eskola partikular guztiak. Josu Zabaleta

Bejondiela, **alfer alferrik baita** , modernokeria pinpirin orok muinak jantxeak dauzkan jendaje honekin tajuzko arrazoiketan hastea. Patziku Perurena

Pericles-ek, duela ia 2.500 urte, esana zuen: **Alfer-alferrik da** ideia onak edukitzea, gero transmititzen ez badakizu. Txema Ramirez de la Piscina

Aurrerantzean ez zizula besterik idatziko eta zuk ere **alfer-alferrik izango** zenuela hari idaztea. Xabier Mendiguren Elizegi

Alfer-alferrik zuan , lehen batere ez zegoena erotu egiten zian eta. Anton Garikano

6 ***alferrik egon***

Erromes-kanta. Salomonena. Etxea Jaunak eraikitzen ez badu, alferrik ari dira etxegileak. Hiria Jaunak zaintzen ez badu, **alferrik daude** erne hirizainak. Elizen arteko biblia

Eta ez zegoen **alferrik egonean** harako adar-kopa hura; han zebilen jira-biran maiz asko (hutsik nahiz betea) putzu-zirrikaren urontzia bezala; aise asko hustu zen, han ageri ziren bi zahagietatik bata. Patxi Ezkiaga

Alferrik egoten da aireportuetan zain, zoriontsu egin behar duen laguna noiz etorriko. Berria - Kultura

Ekonomia azkar dadin, ez du nahi sosa **alferrik egon** dadin! Laguntza berezi batzu hitzeman ditu Frantzian berean sortuko edo handituko diren lantegieri. Herria

- Goazen Sokrates, hemen **alferrik gaude** eta. Harkaitz Cano

Jendea **alferrik zegoen** aditu eta txalotu ohi zituen hitz ozen ponpoxoen zain. Fernando Rey

Baina **alferrik egon** nintzen hitz haien erantzunaren zain. Koro Navarro

Azkenaldi hartan Londresko eguneroko bizimodua zentzugabetuz joan zitzaion Lucyri, iruditzen baitzitzaion **alferrik zegoela** bertan, denbora galdu besterik ez zuela egiten. Joxemari Iturralde

Ezdeustzat harturik, abandonaturik, **alferrik daudelako** sufritzen dute objektuek. Joxan Elosegi

Alferrik egon da Cienfuegos alprojaren zain, berak garraiatu beharko du hiruhankako astuna, herrenak beharra dauka Artekale eta Kale Nagusiko bazterrean, bertora dator izerditan irakiten. Koldo Izagirre

Gero, han **alferrik nengoela** ohartuta, kalera irten naiz. Jon Arretxe

Ez naiz **alferrik egon** zure zain. Jose Morales

Spinozaren ustez, izan ere, alferrik da sumintzea; **alferrik dagoena** deitoratu edo iraintzea: unibertsoa ulertzea baita helburua. Markos Zapiain

Beraz, **alferrik gaudenez** hor, onena itsasontzira bueltatzea izango dugu. Julen Gabiria

7 ***alferrik izan***[1] du *ad*

Esku artean duzun liburuaren berri lehendik baldin baduzu, **alferrik duzu** sarrera hau. Xabier Olarra

Baldin badakizu, **alferrik dut** erakustea. Itziar Otegi

Alferrik nuen gezurretan hastea. Jon Muñoz

Alferrik dute erlojuek arratsaldeko hirurak eta laurdenak seinalatzen. Joxerra Garzia

- Orain **alferrik du** kate hori, esku horrek ez du ihes egingo. Josu Zabaleta

Asanblada arin bat egiteko astia eskatzekotan egon nintzen, baina **alferrik nuen**. Koldo Izagirre

Eta Meharrak gizonaren poltsikoetan eskuak sartzen zituen bitartean, Pepponek besoetatik kateatuta eusten zion, eta **alferrik zuen** askatu nahi izatea. Koldo Biguri

Ondikotz, **alferrik nuen** gida arakatzea, Klararen deiturarik ez nekien-eta. Aingeru Epaltza

Alferrik duzu salatari bihurtzea. Hasier Etxeberria

8 *alferrik izan*[2] da *ad*

"**Alferrik da** dena, nire garuna gela hau baino txikiagoa da, eta ezin dira bertatik irudi ederrak atera, barruko izaki ilun basatien mende baitaude..., bainago... ", pentsatu zuen Ayalak. Aritz Gorrotxategi

Neu ere, ia, zuri gehiago ez idaztekotan egon naiz, **alferrik baita** hemen hitz egiten ibiltzea. Hasier Etxeberria

Spinozaren ustez, izan ere, **alferrik da** sumintzea; alferrik dagoena deitoratu edo iraintzea: unibertsoa ulertzea baita helburua. Markos Zapiain

Mustafa zenak zazpi ahaleginak egin zituen bere lanbidea ikas zezan, baina dena **alferrik izan** zen. Patxi Zubizarreta

Emaguzu laguntza etsaien kontra, giza laguntza **alferrik baita**. Elizen arteko biblia

Ez du espero bizitzak ezer onik ekarriko dionik; bizitza gordina baita, eta **alferrik da** bilatzea; ez dago ezer, eguneroko ugerra eta kedarra besterik ez. Berria - Kultura

Hala ere, orain **alferrik da**, PPk bere mozorro guztiak kendu dituelako, eta benetan dena agerian utzi duelako. Berria - Euskal Herria

Horregatik diot **alferrik dela** Lurie jaunarekin eztabaidatzen jarraitzea. Oskar Arana

Beti saiatzen naiz atsegina izaten telefonoz, baita **alferrik denean** ere. Eskarne Mujika

Alferrik da hain errotuak dauden etiketa bi horien kontra aritzea. Ana Urkiza

Adibide horiek iradokitzen digute **alferrik dela** "gramatikaltasuna" kontzeptuaren definizioa semantikan oinarritzen saiatzea. Itziar Laka

Orduan **alferrik zen** arrazoimenaren argia aipatzea argudio gisa, gauza bakarra egin zitekeen: zintzo egon esperoan mozkorra pasatu arte. Fernando Rey

Alferrik izango zen behargabeko galderak egitea eta, beraz, bestela bezala esan zuen. Ibon Uribarri

Alferrik izan ziren antibiotikoak eta gauaren lehen parteko odol hotza, azkenean ospitalean amaitu nuen. Joseba Urteaga

// Orain orrizko mozorropetik oihuka hasten denean: // "Itzuliko naiz nire arropak jasotzen ditudanean," // zerrenda aztertu eta diotse tonurik doilorrenean: // "Barkatu, baina **alferrik dira** modaz pasa direnean". Xabier Olarra

Segituan ohartu da, haatik, **alferrik dela**, etsi egin beharko duela, eta mantsoago ibiltze hutsa mesedegarriagoa izanen zaiola. Pello Lizarralde

Alferrik izan ziren Nuñoren arrazoi eta erregu guztiak. Martin Anso

Alferrik dela jakinagatik ere. Urtzi Urrutikoetxea

Geroztik, **alferrik izan** ziren Arantza etxekoandreak erosi zituen pozoi-hauts guztiak. Gotzon Garate

9 *alferrik galdu* *(ETCn **2.903** agerraldi; orobat **alferrikaldu** ETCn **71** agerraldi)*. da *ad*

Lehenbailehen askatu behar da baldin eta ez bada aparailu guztia **alferrik galdu** nahi. Hasier Etxeberria

Klararen etxean **alferrik galdutako** latexezko bi zorroen klonak karteran nituela oroitu nintzen. Aingeru Epaltza

Ez dira istorioak **alferrik galdu** behar, denak behar ditugu. Koro Navarro

Denbora **alferrik galtzen** ari gara zuregatik!... Karlos Zabala

Hori banatzea **alferrik galtzea** da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Pena da horrelako gizona bizimodua **alferrik galtzen** ikustea. Jon Muñoz

Maiz higienerik gabe, osasuna **alferrik galtzen** dutela. Gotzon Garate

Ez bitez hire amaren erreguak **alferrik gal,** Hamlet. Juan Garzia

Filologoak pazientzia galtzen du, petraldu egiten da nahi baino gehiagotan, ikusten duelarik hainbeste dotrinarekin, hainbeste interpretaziorekin [...] hitzak **alferrik galtzen** dizkiotela eta andeatzen. Iñaki Segurola

· Gazte **alferrik galduek** bakarrik egiten dituzte profanazio sakrilegoak. Juan Martin Elexpuru

10 *ez alferrik*

Berdeen mugimendua ere **ez alferrik** sortua da gainerakoan hain hotz eta kontrol zalea den herrialdean. Joxerra Garzia

Ez alferrik!, egin nuen barre. Anjel Lertxundi

Egoera **ez alferrik** luzatzera deliberatu zen Andreas: Anjel Lertxundi

Ez alferrik amak larrua ondo zurratu zidaan zaildu zekidan. Juan Garzia

-Ez, Peter, **ez alferrik** gastatu maitagarrien hautsa nirekin. Julen Gabiria

Esana utzi zuen poetak, aspaldi eta **ez alferrik**, hiriko kalerik estuena errukiarena dela. Patxi Iturritegi

Besamotzak besoa bezala, **ez alferrik** ukan zenuela zomorro hura lapa baten antzera josirik zeure ahots-kordetako batean. Hasier Etxeberria

Eta: "Bai, banaiz! ", Azouzen protesta - **ez alferrik** moztu zioten, alajaina, zakilaren puntakoa. Pablo Sastre

"Egun berean bi aldiz askotxo da", pentsatu genuen denok, **ez alferrik**, zeren berriro zen bonba zaparrada bat, hiriaren beste aldean oraingo honetan, aireportu aldean. Josu Zabaleta

Ez alferrik: bederatzi segundo doi eskatuko diegu aurki, eta, hori lor dezatenean, zortzi. Joxerra Garzia

Eta une hartan euforia sentsazio on batek hartuta sentitzen zenez gero, iraun zezan eta **ez alferrik** galtzearren, berriro jarri zuen Stan Getzen disko brasildarra hasieratik. Joxemari Iturralde

Gozotik ezetz, baina beste menta te bat baietz, hain zait gozoa eta urrunekoa! **Ez alferrik** naiz espainola. Iñigo Aranbarri

Ez alferrik, eskimalen artean, Groenlandian, 60tik gora elur jenero bereizten dituzte. Pello Zabala

Ez alferrik; hurrengo egunean leihoak itxita zeuden, eta mirabeak besteei esaten zien mutil hura burutik eginda zegoela, esaten zuela airean bazirela euli batzuk ikusten ez zirenak eta eguzkiak hiltzen zituenak. Josu Zabaleta

Iduri du zilar bizia, ez du hitz bat hutsik **ez alferrik**. Xipri Arbelbide

Horixe da guztion bekatua eta guztion kondena; eta utopia horretan dihardugu, **ez alferrik**, erlijioari, politikari, filosofiari, arteari atxikiak. Karlos Linazasoro

Josék ondo ezagutzen du Magrisen obra ere, **ez alferrik** itzuli du gaztelaniara Magrisen hainbat lan. Anjel Lertxundi

Ez alferrik, Sarrionandiak oroitarazi zigun euskal literatura oro har zuri-beltza zela, esan nahi baita, ez garela gehiegi saiatu izan koloreak lantzen. Patxi Zubizarreta

Baina, **ez alferrik**, mende hartako bilatzailerik gazteena zen Harry. Iñaki Mendiguren

Ez alferrik zen hori modu alde-aldean bakarra nire mutante kuttunetariko batzuen ezaugarriak azaltzeko. Juan Garzia

Ez alferrik, alajaina! Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahalegin guztiak alferrik (5); **alfer alferrik** (86); **alfer alferrik ari** (6); **alferrik ahalegindu** (6); **alferrik ahalegintzen** (7); **alferrik ari** (98); **alferrik ari dira** (9); **alferrik ari gara** (10); **alferrik ari haiz** (6); **alferrik ari zara** (15); **alferrik ari zela** (7); **alferrik ari ziren** (5); **alferrik ariko** (5); **alferrik aritu** (6); **alferrik baina** (21); **alferrik baita** (8); **alferrik bilatu** (10); **alferrik bilatuko** (13); **alferrik bizi** (5); **alferrik da** (140); **alferrik dela** (29); **alferrik dira** (17); **alferrik dituzu** (5); **alferrik duk** (29); **alferrik egin** (22); **alferrik egiten** (5); **alferrik egon** (8); **alferrik eman** (6); **alferrik esan** (6); **alferrik esango** (7); **alferrik esaten** (6); **alferrik eta** (9); **alferrik etorri** (8); **alferrik ez** (31); **alferrik ez galtzea** (5); **alferrik ez galtzeko** (12); **alferrik gabiltza** (5); **alferrik gal** (5); **alferrik galdu** (185); **alferrik galdu behar** (7); **alferrik galdu gabe** (10); **alferrik galdu nahi** (20); **alferrik galdu zituen** (5); **alferrik galdu zuen** (7); **alferrik galdua** (21); **alferrik galduak** (5); **alferrik galduko** (29); **alferrik galduko da** (6); **alferrik galduta** (14); **alferrik galdutako** (20); **alferrik galtzea** (45); **alferrik galtzea da** (6); **alferrik galtzeko** (22); **alferrik galtzen** (122); **alferrik galtzen ari** (22); **alferrik galtzen ez** (6); **alferrik galtzen utzi** (13); **alferrik galtzen uzten** (6); **alferrik hil** (5); **alferrik hitz** (7); **alferrik ibili** (11); **alferrik ibiliko** (8); **alferrik izan** (129); **alferrik izan da** (17); **alferrik izan dira** (5); **alferrik izan zen** (55); **alferrik izan ziren** (13); **alferrik izango** (59); **alferrik izango da** (19); **alferrik izango dira** (5); **alferrik izango zela** (5); **alferrik izaten** (14); **alferrik izaten da** (6); **alferrik jardun** (7); **alferrik litzateke** (6); **alferrik nekatzen** (5); **alferrik nuen** (6); **alferrik ordea** (23); **alferrik pasatu** (7); **alferrik pasatzen** (11); **alferrik saiatu** (32); **alferrik saiatu nintzen** (5); **alferrik saiatu zen** (9); **alferrik saiatuko** (13); **alferrik saiatzen** (9); **alferrik zabiltza** (11); **alferrik zela** (35); **alferrik zen** (67); **alferrik zen**

hari (5); **alferrik ziren** (7); **alferrik zuen** (5); **asko alferrik** (5); **aukera alferrik** (34); **aukera alferrik galdu** (15); **aukera alferrik galduko** (6); **aukera alferrik galtzen** (7); **aukera hau alferrik** (8); **baina alfer alferrik** (10); **baina alferrik** (290); **baina alferrik da** (11); **baina alferrik izan** (33); **baina alferrik zen** (13); **baina dena alferrik** (8); **baita alferrik** (6); **bat alferrik** (10); **bestela alferrik** (7); **bizitza alferrik** (6); **da alferrik** (31); **da alferrik galdu** (5); **dela alferrik** (5); **dena alferrik** (34); **dena alferrik izan** (6); **denbora alferrik** (91); **denbora alferrik galdu** (34); **denbora alferrik galtzea** (18); **denbora alferrik galtzen** (24); **denborarik alferrik** (9); **denborarik alferrik galdu** (6); **dira alferrik** (19); **dirua alferrik** (14); **du alferrik** (6); **dut alferrik** (9); **dute alferrik** (5); **erabat alferrik** (5); **ere alferrik** (35); **ere alferrik galdu** (6); **eta alfer alferrik** (8); **eta alferrik** (77); **eta alferrik da** (5); **eta alferrik galdu** (5); **eta alferrik izan** (5); **eta alferrik zen** (6); **eta denbora alferrik** (9); **eta ez alferrik** (13); **ez alferrik** (111); **ez baita alferrik** (5); **ez da alferrik** (19); **ez dira alferrik** (16); **ez dut alferrik** (6); **ez dute alferrik** (5); **ez nuen alferrik** (6); **ez zen alferrik** (9); **ez zuen alferrik** (12); **ezin da alferrik** (6); **guztia alferrik** (17); **guztiak alferrik** (10); **guztiz alferrik** (6); **hau alferrik** (15); **hau alferrik galduko** (5); **hori alferrik** (8); **hura alferrik** (11); **indarrak alferrik** (5); **izena alferrik** (5); **jendea alferrik** (5); **kontra alferrik** (6); **nola alferrik** (6); **nuen alferrik** (10); **orain alferrik** (9); **zen alferrik** (14); **zituen alferrik** (5); **zuen alferrik** (16); **zuten alferrik** (7)

---

alferrikako *(ETCn **4.843** agerraldi)* **1** *izlag* ia ezertarako balio ez duena, alferrekoa.

- **Alferrikako** galdera, begien bistan daukana ere ukatzen duenarentzat -erantzun zidan gizon beltzez jantziak mesprezioz. Anjel Lertxundi

Gehiegi luzatzen nintzen **alferrikako** azalpen aspergarrietan. Ramon Saizarbitoria

Garbia, hau da, dotorea, sotila, **alferrikako** apaingarririk gabea, ez faltan ez soberan ezer ez duena. Berria - Kultura

Gibelean ezein aztarnarik uzten ez duten **alferrikako** solasak, zure omenaren beraren laguntzaz susmotan jarriak liratekeenak. Jon Muñoz

Orduan **alferrikako** damuak izaten dira; *banintz* eta *banu*-k ez baitute gurdirik tiratzen. Iñaki Zabaleta

Txitxikovek, zerbitzari-jendea hain eszena itsusiaren lekuko izan ez zedin eta, aldi berean, Nozdriovi eusten saiatzea **alferrikako** lana zela sumaturik, besoak askatu zizkion. Jose Morales

Alferrikako epaiketa bati, ezertarako balio ez duen erabaki bat eman dio justiziak; tamalez, baina, errepresioa da betiko garaile. Berria - Mundua

Ez da zer harriturik Andres Hurtadoren nihilismoarekin ezta haren pozbiderik ezarekin eta **alferrikako** errebeldiarekin ere, merezi duen egitasmo eraberritzailerik ezin onartu eta ezin martxan jar dezakeenez gero. Josu Zabaleta

Gogor jokatu behar dugu, oldarkortasun handia erakutsi behar dugu, baina txartel inozoak ikusi gabe eta **alferrikako** borrokak eragin gabe. Berria - Kirola

Proposamen praktikoak egiten genituen, ez **alferrikako** teorizazioak. Berria - Euskal Herria

Joko hori ez nuen maite ordea; **alferrikako** umiliatze bat iruditzen zitzaidan zure aldetik; zer lortu nahi zenuen zeure burua horrela zigortuta? Xabier Mendiguren Elizegi

Gaztelu ergel baten **alferrikako** babesean zegoela sentitzen zuen. Berria - Kultura

Alferrikako laguntza nintzateke. Joanes Urkixo

Ezertan ez pentsatzeko ahaleginak ere egiten zituen: **alferrikako** ahaleginak!, buruko zoko-bazter guztietan atergabe sortzen baitzitzaizkion pentsamendu-antzeko puska itxuragabe batzuk eta ezin konta ahal oldozpenen muturrak eta buztanak. Jose Morales

Edertasuna **"alferrikako** ahaleginari" lotzen zaio, edertasuna eta tristezia lotuta daude halabeharrez. Ibon Uribarri

Inori ez zitzaion **alferrikako** hitzik esaten uzten, ezta entzundakoak kontatzen ere. Askoren artean

Alferrikako argitasun dolugarririk bilatu gabe, egin diezaiegun men Probidentziaren asmoei, eta dugun sinets haren xedeen jakindurian, ulertzen uzten ez dizkigularik ere. Jon Muñoz

Orain baino elikagai gutxiago kontsumituko ditugu (dieta hipokalorikoa, oraingoaren aldean), **alferrikako** gastua ez egitearren eta, gainera, gutxiago janez gizakia (izakia, oro har) hobeki eta luzeago bizi dela frogatua dagoelako. Edorta Agirre

Ripiorik gabeko soneto bat izaten da, eskuarki, baina oso-osorik ripio hutsa dena: hots, sobrakin bat, **alferrikako** den zerbait. Juan Garzia

Literaturak bere-berea du, neurri batean behintzat, **alferrikako** izatea. Joxerra Garzia

Izan ere, **alferrikako** ala baliagarri izatea gauzei begiratzen zaien talaian baitago nagusiki. Joxerra Garzia

Mesopotamia zaharrean Gernika berriak nonahi ikusten dihardugun honetan, sekula ez dira hitzak gertatu hain **alferrikako**. Hasier Etxeberria

Zenbat **alferrikako** poz eta egun seinalatu, mundua haur eder baten bila zoratzen balebil bezala! Anjel Lertxundi

Eta **alferrikako** eutsi nahi horretan, hari lotutako talketatik etengabe sortzen zaizkizu ezinak eta amorruak, gero eta nabarmenkiago somatizaturik. Txillardegi

Hobe dik **alferrikako** hamar perpaus izkiriatzea, perpaus garrantzitsu bat aipatzeke uztea baino. Jon Muñoz

Emaiozu berea urritasun zuhurrari, ez mixerian bizitzeko, baizik eta **alferrikako** mila kezka material eta izpiritual burutik uxatzeko. Patziku Perurena

Karta argitaratu zioten, eta **alferrikako** hitz zintzoz beteriko erantzuna heldu zitzaion Arartekoaren bulegotik. Iban Zaldua

Ezpatari **alferrikako** beste tirakada bat eman zion; ponyaren gainera igotzen saiatu eta huts egin zuenez, oihuka esan zuen: [...]. Iñaki Mendiguren

Hark ezetz erantzun zion, argudiatuta epaileak aukera duela "lekuz kanpoko, premiagabeko, **alferrikako** eta bidegabeko" irizten dituen froga eskaerak atzera botatzeko. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo gisa)

Batzuetan gehiago kostatzen da axaleko bi hitz **alferrikako** esatea, besteetan diskurtso mamitsu oso bat baino. Hasier Etxeberria

Eskua patrikan sartu eta pizgailua atera zuen, belarri parean astindu ondoren pizteko bi edo hiru saio **alferrikako** egin, eta lurrera botatzeko. Ramon Saizarbitoria

Zenbakien serie naturalerako hiztegi infinitu bat, oroimeneko irudi guztiak gogoan hartuko zituen katalogo **alferrikako** bat. Juan Garzia

Liburuzainek gaitzesi egiten dute liburuetan zentzurik bilatzeko ohitura hori, sineskeriak eragindako aztura **alferrikako** hori, eta ametsetan edo eskuko marra kaotikoetan bilatzearen parekotzat jotzen dute. sudur mintzak puztu eta gerraren hasieran denei banatu zieten petatearen barruan zegoen trepeta **alferrikako** hura atera zuen jakaren barruko patrikatik. Juan Garzia

Irakurketa, neska koskorrari errieta egiten dion pertsona heldu horren talaiatik begiraturik, ekintzarik eza da, etekinik gabeko zera **alferrikako** bat. Anjel Lertxundi

Kristalaren atzeko aldean eskegitako oihalei, trinkotu asmo **alferrikako** batez, tira egin zien ikusi zuenean zelan zilindrada handiko motozikleta batean ailegatutako gabardina eta kapeladun gizon batek [...] farola baten magaletik inguruko etxe-aurrealde guztien goiko parteak leihoz leiho ikuskatzen zituen. Josu Landa

Azkenean, goiz batean, beste behin Eugenia bulegoan aurkitzeko saio **alferrikakoa** egin ondoren, oharra justu bere neurria zuen gutunazal batean sartu, eta gutunontzira jaitsi nintzen, aldez aurretik azken erabakia patuaren esku nola utzi pentsatuta. Ramon Saizarbitoria

Bakardadea gogoko banuen ere, itxaronaldi **alferrikakoak** neure onetik ateratzen ninduen. Alberto Ladron Arana

Julian ez zen intelektual horietakoa, inondik ere; denbora galtze **alferrikakoak** iruditzen zitzaizkion nobela eta antzekoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure sentimenduak sorrarazten dizkigun hark gure jakintza **alferrikakoak** baino hobeki daki zer komeni zaion batbederari. Jon Muñoz

Damutu nintzen hainbeste hitz **alferrikakorekin** duintasuna galdu izanaz. Ramon Saizarbitoria

Han egongo da zure herria, gabarra zaharra ematen duela, lehorretik bereizi eta nabigatzen abiatzeko ahalegin **alferrikakoan**. Joseba Sarrionandia

Hamaika mila plaza pasa eginak gaude gaudeneko, denboraren probaleku berrizahartuan, galtzaileen arteko dema **alferrikakoan**. Joxerra Garzia

Orduarteko zalantzek, ezbai **alferrikakoek** paradoxalki egoera tinko batean itzatua ninduten. Piarres Aintziart

Bigarrenak, berriz, jentilen errepikapen **alferrikakoez** Bibliak ematen zuen agindua alegatzen zuen (Mateo 6:7). Juan Garzia

Ez ditugu inoiz ahaztuko bizitzen galera tragiko eta **alferrikakoa**, ezta epe luze batez sufritutako zauriak ere. Berria - Harian

Gure arimako zein txokotan dute habia ongintza, gizalegea, karitatea bezalako bertute eder eta **alferrikakoak**, zenbait erlijio inozok bere kode irrigarrietan ezarri dituztenak, eta iruzurgileek edo eskaleek predikatu izan dituztenak, besteengandik laguntza edo gutxienez tolerantzia lortu nahian, beren buruen mesederako. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nahi dut leku honetan inor ez sartzea, beronen garbitasuna eta santutasuna hobeki gorde dezaten, eta bertan hitz hutsal eta arimarentzat **alferrikakorik** ez esatea. Askoren artean

Lan egitea ezinezkoa bezain **alferrikakoa** zen. Juan Garzia

Naturak motx egin baitzuen gizona irabazpidetan, baina irrika **alferrikakotan** kaburik gabea inon. Patziku Perurena

Eta ikusi zuen heriotzaren desegintzarrea ez zela beste mila mugimendu **alferrikakotara** oldartzen den tropel zurrunbilotsu horren askapena baino. Juan Garzia

Horregatik dira **alfer-alferrikakoak** komunikabideek betetzen edo bete beharko luketen egitekoari buruzko hitzaldiak. Berria - Euskal Herria

-Alfer-alferrikakoak irizten diet liburu berri horiei guztiei. Mirentxu Larrañaga

Alfer-alferrikakoz gain, geure buruak engainatzen ibiltzea da, gure jokamoldea konprometatzen duen arrazoimen praktikoaren esijentzia dena, auzi teoriko abstraktu gisa eztabaidatu nahi izatea. Joxe Azurmendi

Baina betiereko erretorika **alferrikakoetan** oinarritu ordez, bide berri bati ekin dio Seaskak. Hasier Etxeberria

3 (bestelakoetan)

Ez da ariketa intelektualik azken finean **alferrikakoa** ez denik. Juan Garzia

Haien beso gihartsuak **alferrikakoak** ziren mamuen aurka. Iñaki Mendiguren

Konparazioa ez da **alferrikakoa**, errekorrak hausteko grinak kirolariak ez ezik, hizkuntza jokalariak ere kitzikatzen baititu. Iñaki Arranz

Oker egongo ginateke baldin eta mapa horiek, ludia gaizki irudikatzen dutelako, **alferrikakoak** direla pentsatuko bagenu. Bernardo Atxaga

Garaipenekin itsutzea **alferrikakoa** zela esan zion Samuel Sanchez txirrindulariak berriari Paris-Niza hasi bezperan. Berria - Kirola

Zirkuluaren koadraturaren ebazpenak aztertzea erabat **alferrikakoa** zelako uste osoan baitzen akademia. Jon Muñoz

Del Vallek gorroto zituen zelatatze lan luze eta, gehienetan, **alferrikako** haiek. Alberto Ladron Arana

Baina halakorik ezean, aurrerabidea nuen eginkizun bakarra, eta **alferrikakoak** nituen gainerako kontsolamendu ametsezkoak oro. Karlos Linazasoro

Halatan, mila burutazio izan nituen, guztiak ere **alferrikakoak**. Joan Mari Irigoien

Aldarrikapenak **alferrikakoak** izan ziren. Elena Touyarou

Urteen poderioz ikasten eta gero **alferrikakoak** bilakatzen diren trikimailuak. Aingeru Epaltza

Izan ere, hildako gudariak piztuko zirela espero izan ez balu, **alferrikakoa** eta zentzugabea izango zen hildakoen alde eskatzea. Elizen arteko biblia

Ez dut uste **alferrikakoa** edo desegokia izango denik Frantzisko santuaren debozio bereziei gainbegiratua ematea. Askoren artean

Lehendabiziko lerroa bukatu aurretik ere **alferrikakoa** iruditu zitzaidan ahalegina. Anjel Lertxundi

Alferrikakoa iruditzen zitzaion erabat gauzei zentzua aurkitzen saiatzea. Harkaitz Cano

Alferrikako gertatu zitzaidan pentsatzea neuk ere, hura begiz hauteman eta hamar hatz azazkaldunez haztatzen nuen honek, ez nuela munstrotik gutxiago. Juan Garzia

Jainkoaren onginahia ez dut **alferrikako** bihurtu nahi. Elizen arteko biblia

Hipnosia **alferrikakoa** eta garestia bihurtu zen bat-batean Budapesten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Legeak eta epaiketak ez dituzu **alferrikako** egingo gezurrezko testigantzen bidez. Esteban Antxustegi

Konturatzen nintzen nire eginkizuna **alferrikako** bilakatzen ari zela; berak ere konturatzen ziren, eta beste lanpostu bat bilatzeko aholkatu zidaten, legeak artean baimentzen zizkidan txoko urrietariko batean. Juan Garzia

Mesopotamia zaharrean Gernika berriak nonahi ikusten dihardugun honetan, sekula ez dira hitzak gertatu hain **alferrikako**. Hasier Etxeberria

Baneukake non enplegatua horretan gastatzen den dirutza hori, **alferrikako** ez ezik kalterako baita euskararen gastu hori. Joxerra Garzia

Padura hartan, errotak lehenean zirauen: geldi, **alferrikako**. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ahalegina alferrikakoa** (5); **alferrikako ahalegina** (3); **alferrikako ahaleginak** (4); **alferrikako ahaleginetan** (3); **alferrikako bat** (4); **alferrikako bihurtu** (6); **alferrikako eta** (5); **alferrikako gauza** (5); **alferrikako hitz** (7); **alferrikako hitza** (3); **alferrikako hitzak** (5); **alferrikako hitzen** (6); **alferrikako hitzen bat** (3); **alferrikako hitzik** (5); **alferrikako lana** (15); **alferrikako lana izan** (3); **alferrikako lana zela** (3); **alferrikako lanik** (3); **alferrikakoa baitzen** (3); **alferrikakoa da** (48); **alferrikakoa dela** (15); **alferrikakoa den** (3); **alferrikakoa egin** (3); **alferrikakoa ere** (3); **alferrikakoa eta** (8); **alferrikakoa ez** (7); **alferrikakoa ez dela** (3); **alferrikakoa gertatu** (3); **alferrikakoa iruditzen** (3); **alferrikakoa izan** (38); **alferrikakoa izan da** (4); **alferrikakoa izan dela** (4); **alferrikakoa izan zen** (10); **alferrikakoa izanen** (4); **alferrikakoa izango** (30); **alferrikakoa izango da** (7); **alferrikakoa izango dela** (3); **alferrikakoa izango zela** (6); **alferrikakoa izango zen** (3); **alferrikakoa izatea** (4); **alferrikakoa izaten** (4); **alferrikakoa litzateke** (5); **alferrikakoa zela** (21); **alferrikakoa zen** (18); **baina alferrikako** (3); **da eta alferrikako** (3); **dela alferrikako** (3); **egindako alferrikako** (3); **ere alferrikako** (3); **eta alferrikako** (34); **eta alferrikako hitz** (3); **ez alferrikako** (3); **hemen alferrikako** (3)
>
> **ahalegin alferrikakoan** (3); **ahalegin guztiak alferrikakoak** (4); **alfer alferrikakoak** (4); **alferrikakoak baitira** (3); **alferrikakoak dira** (18); **alferrikakoak direla** (5); **alferrikakoak gertatu** (6); **alferrikakoak izan** (34); **alferrikakoak izan dira** (4); **alferrikakoak izan ziren** (21); **alferrikakoak izango** (12); **alferrikakoak izango lirateke** (3); **alferrikakoak zirela** (9); **alferrikakoak ziren** (8); **alferrikakoak ziruditen** (3); **alferrikakotzat jo** (3); **baina alferrikakoa** (10); **baina alferrikakoa da** (3); **baina alferrikakoa izan** (5); **baina alferrikakoak** (4); **bezain alferrikakoa** (9); **bezain alferrikakoa da** (4); **borroka alferrikakoa** (3); **da alferrikakoa** (18); **da alferrikakoa izan** (5); **da alferrikakoa izango** (7); **dela alferrikakoa** (5); **dela alferrikakoa izan** (3); **dena alferrikakoa** (3); **dena alferrikakoa izan** (3); **dira alferrikakoak** (5); **egitea alferrikakoa** (3); **erabat alferrikakoa** (4); **ere alferrikakoa** (4); **ere alferrikakoak** (4); **eta alferrikakoa** (18); **eta alferrikakoak** (16); **eta alferrikakoak dira** (3); **eta alferrikakoak izan** (7); **ez da alferrikakoa** (17); **ez dela alferrikakoa** (5); **ez dira alferrikakoak** (4); **ez zen alferrikakoa** (4); **guztia alferrikakoa** (10); **guztiak alferrikakoak** (12); **guztiak alferrikakoak izan** (4); **guztiak alferrikakoak zirela** (3); **guztiz alferrikakoa** (6); **guztiz alferrikakoak** (4); **hau alferrikakoa** (5); **hori alferrikakoa** (6); **hura alferrikakoa** (3); **lana alferrikakoa** (5); **oro alferrikakoa** (3); **zein alferrikakoa** (3); **zen alferrikakoa** (4); **ziren alferrikakoak** (3)

---

alferrikakotasun *iz* alferrikakoa denaren nolakotasuna.

Nakaz honen seigarren puntuan bere aurretiko Elisabethen eredua gogoratzen du, eta heriotza-zigorraren **alferrikotasuna** nabarmentzen. Juan Martin Elexpuru

---

alferrikaldu, alferrikal(du), alferrikaltzen da/du *ad* alferrik galdu.

Las Vegasen aukera hori **alferrikaldu** izanaz damutuko direla, eta bera aitabitxi aukeratu ez izanaz. Patxi Zubizarreta

Baina geratzen zaigun azken egun hau ez nuke **alferrikaldu** nahi -marmarikatu du, eskutik heltzen zidala. Patxi Zubizarreta

Ez nuke gustukoa izango hain noblea eta ohoragarria den zerbait **alferrikaldu** dela jakitea. Agustin Otsoa

Zertan gaude hemen denbora **alferrikaltzen**? Anton Garikano

Ez gara hona Sauron azpisuge eta madarikatuarekin hitzak **alferrikaltzera** etorri, eta are gutxiago bere esklaboetako batekin. Agustin Otsoa

Idazluma eskuan harturik, zirriborroak egiten jardun zuen arratsalde guztian, itun-agiri bat idaztekotan atereak zituen orriak **alferrikalduz**. Pedro Alberdi

Oihala unean baino unean zegoen **alferrikalduago**. Bernardo Atxaga

Baiezkoan nago, kalean pasatzen ikusten zaitudanean ez baitaramazu neskazaharren itxura **alferrikaldua**, lizuntzen utzitako jakiarena. espekulazio soilak bezala arrazoimenaren azken helburuak halabeharrez bihurtuz eta **alferrikalduz**. Xabier Mendiguren Elizegi

Amaren esanetik nire idatzira ez da Bergarako doinua bakarrik **alferrikaltzen**. Joxerra Garzia

Berrogeita lau urterekin ez dago denbora **alferrikaltzerik**, pentsatu zuen. Anton Garikano

Rakel neska xarmanta dela, bakarrik dagoela eta erokeria litzatekeela aukera hau **alferrikaltzea**. Patxi Zubizarreta

Hura zen gero denbora **alferrikaltzea**! Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **denbora alferrikaltzen** (3)

---

alferrikaltze *iz* alferrik galtzea.

Bazirudien errietan ari zitzaiola hura, begirada hotzez, zalaparta eta istilu guzti honengatik; zoramen eta sentimenduen **alferrikaltze** honengatik. Anton Garikano

---

alferriko *izlag/izond* alferrikakoa.

Alferriko erdarakadak baztertzen ahalegindu behar dugu, beraz. Koldo Zuazo

Gizonen mesprezioa bereganatzen duten **alferriko** legeek beren doilorkeria itsasten diote lege osasuntsuenei ere. Juan Martin Elexpuru

Eta ez daukat oparirik, ez baldin bada nirekin **alferriko** fardel modura dakartzadan katalogoak eta liburuxkak, euskal literaturari buruzkoak. Edorta Jimenez

Egin zitekeen aukeran **alferriko** mugaketak saihesteko, Augustok bide eman zien senadore [...] ez ziren pertsona libre guztiei jareginekin ezkontzeko Ez da **alferriko** sentimendurik gizonarengan. Iñaki Iñurrieta

Erabil al dezake, diot, haserrearen, fanatismoaren eta tirano makalen fruitu den **alferriko** ankerkeria hau? Juan Martin Elexpuru

Ez da **alferriko** sentimendurik gizonarengan. Juan Martin Elexpuru

Itaunketak **alferrikoak** dira, delituaren aitorpena **alferrikoa** den bezala, beste froga batzuek baieztatzen dutenean erruduntasuna. Juan Martin Elexpuru

Frogatua geratu da **alferrikoa** eta injustua dela hiritarra bere herrian preso eukitzen duen legea. Juan Martin Elexpuru

Benetakoa bada, ez dagokio beste zigorrik legeek ezarritakoa baino, eta **alferrikoak** dira oinazeak, errudunaren aitorpena **alferrikoa** delako; benetakoa ez bada, ez litzateke errugabea torturatu behar, errugabea baita, legeen arabera, delituak frogatu ez zaizkion gizona. Juan Martin Elexpuru

Lege salikoak, ez baitzuten onartzen usadio hori, **alferriko** bihurtu ziren nolabait, eta desagertu egin ziren. Iñaki Iñurrieta

Umeak beste ondoez bat izaten badu, medikuek uko egin diezaiokete hura bizkortzeari, **alferrikoa** ikusten badute. Berria - Gaiak

Zerbait obratu ezean, hutsaren analizatzen laket zait haatik, perpausen moldatzeak iragan denbora **alferrikoari** halako substantzia bat emanen diodala itxarotuz. Piarres Aintziart

Historiak irakurtzen ditugunean, nor ez da izutzen ustez gizon jakintsuek asmatu eta odol hotzez erabili dituzten tortura basa eta **alferrikoekin**? Juan Martin Elexpuru

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alferrikoa da (4); **alferrikoak dira** (3); **da alferrikoa** (3)

---

alferrikotasun *iz* alferrikakotasuna.

Nakaz honen seigarren puntuan bere aurretiko Elisabethen eredua gogoratzen du, eta heriotza-zigorraren **alferrikotasuna** nabarmentzen. Juan Martin Elexpuru

---

alferrontzi *izond/iz adkor* alfer galanta.

-Zu ez zara **alferrontzi** bat, Johnny -esan zion Smithers andreak ahots lodi samarraz-, ez dizut utziko halakoa izaten. Fernando Rey

Lepoa jokatuko nuke **alferrontzi** honek ez dituela apunteak ukitu. Jon Arretxe

Ezin zara nire zuzendaria izan, **alferrontzi** bihurtzen bazara. Fernando Rey

Egun arrunt batean zer egiten zuen jakinik, irakurlea aise ohartuko da ezen Andrei Ivanovitx Tentetnikov Rusen hain ugariak diren eta, besteak beste, artaburuak, **alferrontziak** edo gibel-handiak esaten zaien gizon horietakoa zela. Jose Morales

Egun batzuk lehenago akolitoei esan hien *esku-zuri* esaten zitzaiela **alferrontziei** euskaraz. Jokin Muñoz

Eskuak bete lanarekin bazabiltza, ez duzula betarik emakumea goxatzeko; lanik egiten ez baduzu, emakumearen kontura bizi zaren **alferrontzi** zuritzat joko zaituzte. Patziku Perurena

-Bai, zerbaiten beharra badu mutil **alferrontzi** honek -erantsi zuen amak-. Patxi Zubizarreta

Eta gazte aleman **alferrontzi** haiek dibertitzen, ezti-mamitan bizitzeko dirua baitzuten. Fernando Rey

Benga, mugi, **alferrontzi** halakoak! Xabier Mendiguren Elizegi

Alferrontziak berriro jantzi zuen etxeko mantala. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alferrontzi bat (4)

---

alferrontzio *(corpusean **alperrontzio** soilik) iz adkor* pertsona alferra. ik **alferrontzi**.

Alperrontziori! Sonia Gonzalez

Han zebillen kankallu aundiya, atzea-aurrea bere mouko beste **alperrontzio** batekin, eta jo'ta ze ai zayo esaten bere mouko beste **alperrontzio** oi? Xabier Olarra

Orra ze ai zitzayon esaten ua kankailu aundiyai, zea, bee moduko beste **alperrontzio** ua. Xabier Olarra

---

alfertasun *iz* bere borondatez lanik egin gabe dagoenaren egoera.

Hain gogara nengoen neure estatu hartan eta neure **alfertasunean** -zeren ene **alfertasun** hura ez baitzen gauza gaixtoa, perilosa eta nork bereganik egoztekoa, baina guztiz kontrakoa-, non deliberatu bainuen ezen merezi zuela bertze egun baten igurikitzea, biharamuneko eguzkiaren zain. Joan Mari Irigoien

Topiko errepikatua zen arraza espainolaren **alfertasuna** eta ezgaitasuna zientziarako, iparraldeko arrazen langintasun eta zientzia eta teknikarako iaiotasunaren aldean. Joxe Azurmendi

Ikaragarri jatunak dira, **alfertasunetik** datorkie neurririk gabe jateko ohitura. Jose Morales

Alferkeria -edo **alfertasuna** - aldarrikatu, amodioarekin lotu, edota erabateko herritarra edo erabateko kontsumitzailea izateko bidea dela esan, kontuak kontu, argi dago enplegurik ez izatea -eta enplegu kaxkarra izatea- arazo larria dela. Iñaki Heras

---

alfertu, alfer(tu), alfertzen *(orobat **alpertu** g.er.)* **1** alfer bihurtu. ik **nagitu**.

Errusiarra halako moldez eginik dago, ezen norbaiten akuilua behar baitu beti..., bestela, **alfertu** eta zabartu egiten da. Jose Morales

Askotan esan duzu euskal sena agortua, **alfertua** ikusten duzula. Berria - Kultura

Horra zergatik arizan zaukun ahoan bilorik gabe erran eta erran oro har ez girela aski ari lanean, japones eta holako batzuen aldean arras **alfertuak** girela! Garapen funtsezko bat segurtatzekotan, behar ginukeela gehiago mugitu! Herria

Alfertuegi zeunden zeure begiei berriz ikusten irakasten aritzeko. Hasier Etxeberria

Batzuetan betetzen dut agindutakoa, baina gehienetan [...] delako garai hori iristen denean hotzegi daukat eskua, **alfertuegi** garunetako giharra sortze-lanari ekiteko, eta liburuak irakurtzeari ekiten diot beste behin ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Aspaldi huntan hemen nabilazu, denboraren tiraniaz gogaitua, erabat laketu ezinik, arront **alfertua**. Jose Angel Irigaray

Alfertzen ari naizela uste dut. Lopez de Arana

Aurrez aurre komunikatzeko **alfertzen** ari garela diozu, baina ez al da askoz lan handiagoa SMSak idaztea? Berria - Gaiak

Maisuaren aurpegia amultsutasunetik zorroztasunera igarotzen ikusi nuen; esan zidan ez ahal nintzela **alfertzen** hasia izango. Irene Aldasoro

2 (izenondo gisa)

Haren hanka-beso arinak, loditzen eta itxura galtzen hasiko ziren, beirateko santu **alfertu** baten moduan, merkatuaren arrunkeriaz kutsaturik. Karlos Zabala

Kazetari **alfertuaren** trikimailu zaharra. Aingeru Epaltza

Usategi mututuak, ermita lotsatuak, etxe desesperatuak, burniola sorginduak, zubi **alfertuak**, gaztelu erotuak... Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alfertzen ari (3)

---

alfertzar *izond adkor* alfer handia.

Austrasiako errege merovingiarrak **alfertzar** galantak ziren Frantziako kondaira ofizialaren arabera (les rois fainéants). J.M. Olaizola "Txiliku"

-Aizue, **alfertzar** halakook! -egin zien oihu mahaietako jokalariei. Alberto Ladron Arana

---

alferziri **alfer 11**.

---

alfil *iz* xake jokoko pieza, diagonalean mugitzen dena.

Taularen ondoan, dagoeneko jokotik kanpo geratuak, zaldi zuri bat eta **alfil** beltz bat. Imanol Zurutuza

Segidan **alfil** eta dorreen bide zuzenak eta zaldi bihurrien jauzi aldrebesak etorri ziren. Alberto Ladron Arana

Zeren eta nik hari peoi bat jan bainion eta hark niri bertze peoi bat... eta aitzinago nik zaldun bat jan nion eta hark niri **alfila**. Joan Mari Irigoien

Joko hura erabakitzeko puntuan zegoela, geratzen zitzaidan **alfilarekin** mugimendu gaixto bat egin nuen. Joan Mari Irigoien

Jokotik kanpo geratutako **alfila** ikusi du taulatik baztertua, eta hari begira geratu da segundo batez. Imanol Zurutuza

Alfilak, ordea, beti kolore bereko laukietan barrena ibiltzera kondenatuta daude, hori dute patua. Imanol Zurutuza

Orain argi ikusten du: **alfilaren** patua egokitu zaio berari. Imanol Zurutuza

---

alfiler *iz* iskilinba, orratz buruduna.

Laster konturatu nintzen nire zetazko gorbata urdina zeukala paparrean zintzilik; ez hori bakarrik, hurbildu ahala ikusi ahal izan nuen gorbataren **alfilerra** nirea bezalakoa zela, zilarrezko izurde bat, izeba Matildek berak oparitutakoa, aspaldi zela; eta ezezagunarengandik bizpahiru urratsetara baino ez nengoela ikusi nuen, harriduraren harriduraz ikusi ere, eskumuturrean zeukan erlojua ere aitarena izandako Longines zaharra zela. Jon Alonso

---

alfonbra **1** *iz* etxeetako zorua estaltzeko ehun lodiko pieza.

Alfonbra bat eskaileretan, **alfonbra** bat harrera-gelan. Eskarne Mujika

Astean behin, Anniek hautsa kentzen zuen, lurra eskobatzen zuen eta argizariz igurzten, baina hodei gris bat altxatzen zen hala ere **alfonbra** zapaltzean. Koro Navarro

Aita lanerako jantzirik, lurrean belaunikatu eta halako indarrez hasten da **alfonbra** eskuilatzen non hautsezko hodei handi bat bihurtzen baita gela guztia. Josu Zabaleta

Ile-zelulak elkarri josita daude, **alfonbra** baten harien antzera. Irene Aldasoro

Salaren beste ertzera eraman duzu begirada, arrastaka altzari eta **alfonbren** gainetik, eta ikusi duzu senarra oin-lanpararen argi horian. Lourdes Oñederra

Nijni Novgorodeko merkatuan dauden te guztiak mendebaldean zehar salduko dira, baina ez da gauza bera gertatuko zoritxarrez Bukharako **alfonbrekin**! Karlos Zabala

Berokiarekin egiten zen lo, **alfonbrez** estalita Pablo Sastre

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Atzo, berriro, Ibarretxeren egoitzako ataurrean, **alfonbra** gorria topatu beharrean, borraz eta bokatxaz armaturiko poliziekin egin zuten topo. Berria - Ekonomia

Eusko Jaurlaritzak auzian erakutsitako jarrera txarretsi du: "Batasunaren kongresua txalotzen du eta Otegiri **alfonbra** gorria jartzen dio gainera". Berria - Euskal Herria

Baina Galvestongoa bazara, tratu hobea ematen dizute, **alfonbra** gorriko tratua. Berria - Harian

Lurreko baldosak eta **alfonbra** txikiak oinkada arin eta isilez zeharkatu zituen Mentxuk. Josu Landa

Azken egunotan **alfonbra** ttiki batzuk ere erosi ditut (ohetik altxatzean tailer mekaniko bateko lur zakarra zapaltzea ez da atseginegia). Harkaitz Cano

Pianoa zegoen gelako **alfonbra** lodia eta biguna zen. Lopez de Arana

Egongela altzari finez eta **alfonbra** zabalez jantzia zegoen. Iñaki Zabaleta

Zu bidaian zinen, eta zure etxezainak **alfonbra** astun, astindu berriak, arrastaka zeramatzan zabal-zabal egindako atetik. Eduardo Matauko

Alfonbra pertsiar eder baten aurrean, urliak ez du ikusten **alfonbra** egin zuen ehulearen nekea beste deus. Anjel Lertxundi

Pertsiako **alfonbra** beti bezala nabarmentzen zen bere lore gorri eta urdinekin, eta hiru aulki turkiarrek areagotu egiten zuten ekialdeko giroa. Fernando Rey

Horrelaxe sendatu nintzen aldi hartan, sukarra izerdituz nire gainean pilatutako **alfonbra** tunisiarrei eskerrak. Fernando Rey

Salara **alfonbra** zuria zapaldu beldurrez sartu naiz, zenbat ardi edo zenbat llama eta guanako kalkulatuz. Joseba Sarrionandia

Gau hartan bisitari inportanteenentzat bereizitako gela eman zieten: sabai altu-altua, feltro gorriz eta **alfonbra** paregabez estaliriko marmolezko zola, eta tapiz kurdu bikainekin apaindutako paretak. Fernando Rey

Linoleo gainean **alfonbra** sare bat, norvegiar kutxa bat, aulki bat arropa batzuekin, aparadorea, armairu zahar bat, kalefakzio gainean artilezko galtzerdiak, mesanotxean baso bat eta botika kajatxo batzuk. Pablo Sastre

Katua lo **alfonbra** zarpailduaren gainean. Koro Navarro

Ezpata alboan utzi eta negar malkoz busti zuen gelako **alfonbra** koloreduna. Aritz Gorrotxategi

Mahaia jo baitzuen zoruko **alfonbra** jo aurretik. Aitor Arana

Gomazko **alfonbra** txikiak saltzen zituen. Koro Navarro

Paperontziak burura bota, hankapeko **alfonbrei** tira egin edo klarion-zatiak botako zizkizun Ohe atorra jantzita, oinak artile kizkurrezko **alfonbraren** gozotasunean, Ni atepeko **alfonbra** gogoan, Bluefields umeleko zapata bustientzako ehun baldartu hura. Iñaki Mendiguren

Paperontziak burura bota, hankapeko **alfonbrei** tira egin edo klarion-zatiak botako zizkizun. Iñaki Mendiguren

Beste mila gau eta beste bat gehiago baikenituen zain, izarak, tapakiak, ohea eta logela bera ere, guztiak hegalda zitezen, **alfonbra** magikoak balira bezala. Joan Mari Irigoien

Familia, edota familia horren luzapen baizik ez zen gizartea -lagunartea, auzunea, herria- oso babes ona izaten zen pertsonarentzat haurtzaroan, **alfonbra** moduko bat pertsona horrek ez zezan bizitzaren lur izoztua senti. Bernardo Atxaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berehala jaso zituzten jatekoak baina, hala ere, txokolate zatiak **alfonbra**-ilez jan behar izan zituzten eta gazta hautsean bildu zen, kroketa estandarren itxura hartuz. Unai Elorriaga

Kolore horiek eta, beste eskala batean, **alfonbra**-dendan ikusi berri genituen guztiak. Bernardo Atxaga

Alfonbra lantegi batean ari zen. Gotzon Garate

Harik eta **alfonbra**-saltzaile batzuek oroipenen joan-etorri barea urratu didaten arte. Jon Arretxe

4 *irudhed*

Ia pozez ito ziren zeren, suerte handiz, hartu zituzten adarrak izerdi gorrixkaz beteta zeuden, eta zoruan goroldiozko **alfonbra** ederra zegoen. Julen Gabiria

Belar berdeko **alfonbra** zoragarri batek, larruzko beroki bat bezain ugaria, milioi bat margarita edo kamamila lorek apaindua, betetzen ditu puskailak azken zokoetaraino.

Koldo Izagirre

Hamabost segundoz lurra ikaraturik ibili zaigu, asfaltozko **alfonbra** bat astinduko balute bezala. Javi Cillero

5 *alfonbra gorri*

Zinema gehiago eta **alfonbra gorri** gutxiago. Berria - Kultura

Izan ere, Iturgaitzek Parlamentuan esan zuenez, "Espainiako Gobernua **alfonbra gorria** jartzen ari zaio Batasunari». Berria - Euskal Herria

Ez zuten **alfonbra gorririk** zapaldu, baina Andra Mari Zuriko plaza guztia izan zuten beraientzat, ertzainek hesiz inguratu baitzituzten inguruak. Berria - Euskal Herria

Baina Galvestongoa bazara, tratu hobea ematen dizute, **alfonbra gorriko** tratua», adierazi du. Berria - Harian

6 *alfonbra hegalari*

Baina ez zen han bukatu nire **alfonbra hegalariaren** kontua, orduan dena desegiten ari zelako, eta izarrartetik lurrera amiltzen ari ziren ezkonberri ttikiak, ehiztari batek tiroa jotako txori zaurituak bezala. Fernando Rey

7 *alfonbra magiko*

Eta hodei haiek, leihoen espazioa iragaiten zutenak, **alfonbra magikotzat** ote zituen, auskalo nondik iritsiak, eta haien gainean hegaldatu nahi ote zuen, Afrikako ordokietaraino? Joan Mari Irigoien

8 *persiar alfonbra* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Etengabe eta pixkanaka bilakatuz, partaide guztien ahotsa entzungarri den puntu batera iritsi nahi dut, eta, hortik abiatuz, **persiar alfonbra** baten marrazkien itxurazko ehundura musikal etengabeak sortu. ETC-prentsa

Tindu horrek ematen die **persiar alfonbrei** bereizgarri duten kolore gorrimin hori. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezaguna da azafrai eta eskuz egindako **persiar alfonbren** esportazioengatik. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **alfonbra bat** (4); **alfonbra baten** (8); **alfonbra baten gainean** (5); **alfonbra berde** (3); **alfonbra eta** (6); **alfonbra gainean** (8); **alfonbra gorri** (5); **alfonbra gorria** (7); **alfonbrak eta** (3); **alfonbraren gainean** (9); **alfonbraren gainera** (3); **eta alfonbra** (13); **eta alfonbrak** (4); **sarrerako alfonbra** (3); **zen alfonbra** (3)

---

alfonbradun *izond* alfonbraz hornitua.

-Aurrera, jauna -esan zion morroiak, eskailera **alfonbradun** bat seinalatuz. Koro Navarro

---

alfonbragintza *iz* alfronbrak egitea.

Alfonbragintzaren gorabeherak esplikatzeari ekin zion, irribarre zabal batekin. Bernardo Atxaga

---

alfonbratu *izond* alfonbrez hornitua.

Duffy jaunaren gela **alfonbratu** gabea zen, eta hormak, burgoiak, margolanez erantzirik zeuden. Irene Aldasoro

---

alfonbratxo *iz adkor* alfonbra xumea.

Hel diezaiogun sutondoko **alfonbratxo** bati mutur batetik, eta astin dezagun poliki-poliki: uhin bat eratuko zaio. Irene Aldasoro

Nahiago duzu etxe atarirako **alfonbratxo** bat? -galdetu zion Noraren aitak. Anjel Lertxundi

Crookshanks luze-luze etzanda zegoen suaren aurrean, **alfonbratxo** gorrixka handi bat bezala. Iñaki Mendiguren

Oroiminez gogoratzen naiz arabiarren oihalpearekin eta ene gorputz akituak atseden hartzen zuen **alfonbratxo** xeratsuarekin. Patxi Zubizarreta

---

alfonsino *iz* Espainiako Alfontso XII.aren aldekoa. ik **alfontsotar**.

Baina hirurehun hildako izan ditiztek bere meneko **alfonsinoek**, baita seiehun bat zauritu ere. Txillardegi

---

alfontsotar *(corpusean ez dago; ETCn **55** agerraldi)* *iz* Espainiako Alfontso XII.aren aldekoa. ik **alfonsino**.

Zenbait neologismo ere asmatu ditut, usterik hoberenean: "alfonsino"ak **alfontsotarrak** badira, "isabelino"ak isabeldarrak eta "napoleonico"ak bonapartetiarrak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alfontsotar liberalismoaren ahultasunak eta oligarkiari eta jauntxokeriari lotua egoteak eragotzi zuten ordura arteko ibilbidea aldatzea eta adostasuna zabaltzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hauteskundeetako emaitzak islatuz, garai hartako Hego Euskal Herriko prentsa gehienbat eskuinekoa eta katolikoa zen, nazionalista, monarkiko **alfontsotarra**, integrista edo karlista, ezkerreko komunikabide gutxi ziren, baina ez bazterrekoak, batzuk izan ezik. ETC-entziklopedia

Karlista asko bandoz aldatu eta **alfontsotar** lerroak indartu zituzten. ETC-entziklopedia

Bere gaztaroan gerlari karlista izandakoa, monarkiko **alfontsotar** bilakatu zen. ETC-entziklopedia

Hirugarren Karlistaldian **alfontsotar** armadan izan zen eta teniente-jeneral izendatu zuten. ETC-entziklopedia

Bien arteko oreka udaberrira arte mantendu zen, noiz **alfontsotarren** Iparraldeko Armadari Espainiatik zenbait unitate gehitu zitzaizkion. ETC-entziklopedia

Eraulgo guduan garaipena lortu eta gero, armada karlistak **alfontsotarrak** jazarri zituen. ETC-entziklopedia

---

alforja *iz* basta, tela sendozko zarrenda, bi muturretan boltsa bana osaten dituena eta zaldiaren bizkarrean jartzen dena kargak eramateko.

Bidaia horretarako, ez genituen **alforja** hauek behar! Horregatik, Batasunak ezin dio Nafarroa Bairi sostengua eman. Berria - Euskal Herria

---

alga 1 *iz* landare klorofiladuna, eskuarki uretan bizi dena, zelula batek edo askok osatua dena.

Orduan Adderley-k uharriaren albo batean **alga** zuri eder bat ikusi zuen, zabuka, eta haren gogoa egin zitzaion. Juan Garzia

Hara joan zen Candida, Punta Roncudoko labarretara, gizona agertuko zitzaion esperantzaz, han eman zituen egunak eta gauak, eta asteak... denetarik jaten, lanpernak, lapak, itsas kirikinoak eta karramarroak, eta **algak** eta horrelakoak... eta halako batean, burua erabat galduta, labarretan behera bota zuen burua. Paddy Rekalde

Petrusek hustu egin du ura biltzeko porlanezko urmaela eta handik **algak kendu** eta garbitzeari ekin dio. Oskar Arana

Ura urdina zen batzuetan, bestetan grisaska; **algak berdeak** ziren. Bernardo Atxaga

Alferrik da, marea jaisten ari da, azken oldarrak dira, azkenerako ez dago ezer, ur-hari batzuen jario barea baizik ez, **algak harrien** gainean pausatzen dira, barreiatuta,

karramarro txiki eta izutu batzuek harrien azpian bilatu dute aterpe. Jon Alonso

Denbora luzez begiratzen genituen bilduma haiek, izebak ganbaran lehortzen utzitako legazkume horien begiak eta varech **algak** murtxikatzen genituen bitartean. Juan Kruz Igerabide

Itsasoa oso urdin ageri zen badia barruan, baina ertz aldera berdetuz zihoan, argituz, esmeraldatuz, eta berde-esmeralda argi hartan **algen** mantxa beltza ageri zen zabal. Iñaki Iñurrieta

Ondorioz, eremu horretan bizi diren **algen garapena** nabarmen emenda daiteke, uraren kalitatea jaitsaraziz. Berria - Gaiak

Atsedenean zeuden liburuak, uraren, gatzaren, arrainen, moluskuen eta **algen babesean** . Jon Muñoz

Algen marea berdeen eragina edo neguko hondakin metaketaren azterketarik ez da egiten. Berria - Euskal Herria

2 *alga arre* *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi)*

Karibeko portuetan ez da sekula **alga** arrerik, salikorniarik edo itsasbelarrik ikusten, ezta itsaso arrunt orok ustez izan beharko lukeen ezein sapropelen arrastorik ere. ETC-literatura, saiakera

Alga arreetan gertatzen den bezala, gainera, zenbait algatan anatomia konplexuak ere garatu dituzte. ETC-entziklopedia

Beherago, ura zeharkatu ondoren ahulduak iristen diren eguzki-izpiak erabili ahal izateko, klorofilaz gain, karoteno eta xantofila pigmentuak izateagatik bereizten diren **alga arreak** eta gorriak agertzen dira. ETC-prentsa

Bost liken espezie, 40 alga gorri espezie, 10 alga berde espezie eta hogei **alga arre** espezie daude inguruan. ETC-prentsa

3 *alga berde* *(corpusean ez dago; ETCn **104** agerraldi)*

Nekez igo zen arroketako batera, estaltzen zuten **alga berdeak** zirela-eta irristakor baitzegoen. ETC-literatura, saiakera

Horien artean, duela gutxi zera irakurri ahal izan dut: itsasoko **alga berdeak** biokautxua lortzeko lehengai bihur daitezke. ETC-prentsa

Norvegia hegoaldeko kostan oso pozoitsua den **alga berde** bat erruz hazi da azkenaldian, eta kalte handiak eragiten ari da izokin haztegietan. ETC-prentsa

Plataformaren goialdean, hau da, urak denbora laburrez estaltzen duen aldean **alga berdeak** nagusi dira. ETC-prentsa

Kontu izan arroketan itsatsirik agertzen diren **alga berde** horiekin, oinetako egokiekin joan behar da bertara eta ahal bada lehorretik egin bide gehiena. ETC-prentsa

Chlamydomonas reinhardtii **alga berdea** oso preziatua da ikerlarientzat; asko saiatu dira haren genoma sekuentzia lortzen. ETC-prentsa

Bost liken espezie, 40 alga gorri espezie, 10 **alga berde** espezie eta hogei alga arre espezie daude inguruan. ETC-prentsa

Horregatik, landareen ioi-erlazioen hasierako lan gehienak **alga berde** jakin batzuetara -adibidez, Chara eta Nitellara- mugatu ziren, haien zelulak hainbat hazbete luze baitira eta zitosol-bolumen nabarmena izan baitezakete. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ozeano hondoan ez dago fotosintesia egiten duen landaredirik, hau da, ez dago **alga berderik** . ETC-entziklopedia

Ezaguna da bertan Aegagropila linnaei marimo **alga berdearen** esfera handiak eratzen direlako. ETC-entziklopedia

4 *alga erregai* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Alga erregaia algetatik eratorritako bioerregaia da. **Alga erregaiak** "hirugarren generazioko" erregaiak dira, "lehenengo generazioko" bioerregai polemikoak (lehorreko landareen oliotik eratorriak) ordezkatzeko gai izango omen direnak. ETC-entziklopedia

5 *alga gorri* *(corpusean ez dago; ETCn **89** agerraldi)*

Alga gorria ("Rhodophyta") alga eukarioto mota da. **Alga gorriak** organismo protistak dira, eta gehienak, organismo zelulanitzak. ETC-entziklopedia

Natur zientzietako lan bat egin behar omen zuen eta Kala-txikin zeuden **alga gorri** batzuk behar zituen, joan aurretik Tomasi azaldu zionez. ETC-literatura, saiakera

Alga gorria kosmetikako krema bihurtu da, eta gero eta arrantzale gehiago biziarazten ditu Euskal Herrian. ETC-prentsa

Hala ere, algen artean aniztasunik handiena **alga gorrietan** dago. ETC-prentsa

Baina, zehazki, udazkenean kostaldeko hainbat herritan ikusten dugun Gelidium Corneum izeneko **alga gorria** izan da kaltetuena. ETC-prentsa

Ez da irudipen hutsa: alga bilatzaileek pilatutako **alga gorrien** aztarna da. ETC-prentsa

Hemen oso ezaguna da **alga gorria** , Gelidium corneum, gure kostaldeko habitat eraikitzailerik onena. ETC-prentsa

Bost liken espezie, 40 **alga gorri** espezie, 10 alga berde espezie eta hogei alga arre espezie daude inguruan. ETC-prentsa

"Benetako" landareak: **alga gorri** , marroi eta berdeak, briofitoak, eta landare baskularrak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bilina pigmentuak kate irekiko tetrapirrolak dira, eta fikobilisoma deritzen antena-egituretan agertzen dira, zianobakterioetan eta **alga gorrietan** . ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *alga jangarri* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

"Hizikia fusiformis" **alga jangarri** filiformea da, marroi iluna, Japoniako gastronomia japoniar sukaldaritzan tipikoa, zapore bizia duena. Basatia hazten da Japoniako, Koreako eta Txinako itsasertzetan. ETC-entziklopedia

7 *alga urdin* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Lehen mila milioi urteetan, zianobakterio edo **alga urdinek** esku-eskura zuten baliabide batez baliatzen ikasi zuten: ureko hidrogenoa (oso ugaria). ETC-literatura, saiakera

Horren ondorioz, Homo sapiens espezieak -espezie bat baita, **alga urdinak** edo zizareak bezala- aldaketa sakon eta iraunkorrak eragin ditu planetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta zera demostratzea, gutxienez Porphyrium cruentum delako alga gorrian, eta Anacystis nidulans delako **alga urdinean** , energiaren transferentzia sekuentziala dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bizidun hauek, zehazki **alga urdinek** (zianobakterioek) oraindik ere gehiago handitu zuten atmosferako oxigeno kantitatea, alga mota gehiago agertzea eraginez, milioi bat urte beranduago. ETC-entziklopedia

8 *kare alga* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Koralezko uharria ur azpian koralek eta **kare-algek** sortzen duten uharri mota da. ETC-entziklopedia

Uharri ezagunenak itsaso tropikaletako koralezko uharriak dira. Sorrera prozesua biotikoa da, koralek eta **kare-algek** eratua. Beste uharri asko prozesu abiotikoz sortzen dira, hau da, arrokak higatzean eta hondarra sedimentatzean. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta alga** (4)

---

algar ik **elkar**.

---

algara *(ETCn **5.142** agerraldi)* **1** *iz* barre oihua. ik **karkaila**.

Irribarrea errazenik sorrarazten ziona zen Luigi, eta bakardadean errundako kezkak eta ezinegonak **algara** eta baikortasuna bihurtzen ziren harekin izandako egonaldietan. Josu Landa

Beheko solairuan, bulegoetan, eta baita goian ere, barre eta **algara** ugari izan da. Josu Zabaleta

Kolpetik esku batez estaliko du ahoa, **algara** eragozteko. Josu Zabaleta

Amaren barre gozoa **algara** bilakatu zen. Lopez de Arana

Blues, jazz edo kantu espiritualen tradizioari jarraituz, elkarri eskua emanda doaz zoriona eta tristura, **algara** eta malkoak, maitasuna eta heriotza. Anton Garikano

Mentxuk zetorkion **algara** ito zuen eta seriotasun fermutuaz hurreratu zuen bere kopa Luigirenera. Josu Landa

Baina **algara** lehertu zitzaion aurpegiaren erdian. Koldo Izagirre

Hermannek akusatuarena egin zuen (**algara** batean jartzen gintuen filosofiako irakaslearen imitazioak), ni fiskala izan nintzen, ez naiz oroitzen nork egin zuen narratzailearena. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hobe zen ikusle edo entzule jartzea, beti zegoen **algara** jator bat botatzeko parada aurkari estonatuaren lepotik. Koldo Izagirre

Lehenengo eskailera mailan gelditurik, beste hirurei begiratuko die une batez, eta **algara** gozogabe bat botako du, eta eskaileretan behera jarraituko du lasterka. Josu Zabaleta

Setheren pozezko **algara** ozenak. Anton Garikano

Peterrek izu une bat izan du, baina berebiziko **algara** bota du, eskailera barrenean orkatiletaraino iristen zitzaidan babarrun itsaso batean ikusi nauenean. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Eta, bulego hartan bezala, baina indartsuago, erantzun lizunak **algara** zerrenda bat sortzen zuen. Bernardo Atxaga

Antzezleek **algara** eztanda batean botako dute beren harridura guztia. Josu Zabaleta

Ruthek barre-**algara** bat jaregin zuen. Lopez de Arana

Betiere barre eginarazten zion; Hazelen barre-**algara** ez zen behartutakoa. Mirentxu Larrañaga

Ez daukazu eskubiderik hurkoa baino tristeago egoteko, betiko ergelkerien motela txalotu behar duzu, **algara**-merke ikusi behar zaituzte. Koldo Izagirre

4 *algara batean*

Algara batean eduki ditu langile mexikarrak zaldi baten gainera igotzeko ahaleginak egiten dituenean. Bernardo Atxaga

Seigarren egunean berriz -nork ez du inoiz egun txarren bat izan? -gizakia egin zuen, gizona lehenengo, nola ez? Hura ikusirik, berehala antzeman zion sortu berria zuen izakia barregarria zela zeharo, eta, **algara batean**, barrez lehertu zen Jainkoa. Joxerra Garzia

Neskame gaiztoa **algara batean** ari zen barrez, eta emakume baten buruak baizik ezin asma ditzakeen tortura-basakeriak ari zen irudikatzen. Josu Zabaleta

Herri batean egin zuen egonaldia esplikatu zuen, batailoia eliza batean sartuta, bideak elurrarekin igaroezinak zeudela-eta ezin mugiturik, jateko babarruna besterik ez eta komuntzat aitorlekua zutela, eta halako xehetasunak eman zituen, non **algara batean** egon baitziren denak. Koro Navarro

Zilipurdika iritsi dira beheraino, harea-pila harrotuz eta **algara batean**. Jokin Muñoz

Aita **algara batean** hasi zen, eta amari eta Margoti kutsatu zien. Josu Zabaleta

Ordu arte isilik, tenk egondako talde-lagunak barrez **algara batean** lehertu ziren, ordea, eta jatetxetik irten ginen behingoz, ez nik nahi orduko baina. Inazio Mujika Iraola

"Ojota beti zegoen umore onez", esaten genion gure buruari eta arratsalde guztia eman genuen **algara batean**. Harkaitz Cano

Beste garagardo bana jokatu genuen billarrean eta neska kontuekin hasi ginen **algara batean**. Anjel Lertxundi

5 *algara egin*

Batzuek **algara** ere **egin** zuten Denver hain txolin jantzita ikusita Txumak gogait eragiteraino errepikatzen zigun "Bravo por el vasquito!" **egin** zuela **algara** Peronek. Anton Garikano

· Harkaitz baten gaineko gaztelua seinalatu eta bere **algara** haietako bat **egin** zuen. Bernardo Atxaga

Algara handia **egin** dute denek, baina agureak, inoiz baino aittitteago, mesprezuzko ezpain okertze bat eginez behatu die bekoz beko. Koldo Izagirre

Algara modulatu bat **egin** du jaulierrak, badaki agirretarrok txukeltegietan esperientzia handia bagenu bezala mintzo garela beti. Koldo Izagirre

Algara egitekoa da, zinez. Koldo Izagirre

6 *algara eginarazi*

Ikusi ez zuten eszena hari forma eman ahala, haren larritasunak eta lotsak **algara eginarazi** zien Bere zorigaiztoaz txisteak eta pasadizoak kontatuz hainbat **algara eginarazi** zion Angieri Tom adiskide minak. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **algara artean** (12); **algara bat** (18); **algara bat egin** (3); **algara batean** (34); **algara batean hasi** (5); **algara batean lehertu** (5); **algara batek** (6); **algara batekin** (5); **algara baten** (5); **algara batzuk** (3); **algara betean** (3); **algara bihurtu** (4); **algara bizian** (4); **algara burrunbatsu** (3); **algara ederrak** (5); **algara ederrak egin** (3); **algara egin** (40); **algara egin nuen** (4); **algara egin zuen** (18); **algara egin zuten** (8); **algara egiten** (4); **algara eragiten** (3); **algara eta** (20); **algara eta oihu** (3); **algara gehiago** (3); **algara haiek** (5); **algara handi** (8); **algara handi bat** (4); **algara handiak** (7); **algara handiak egin** (3); **algara handian** (3); **algara ozen** (6); **algara ozen bat** (5); **algara ozena** (5); **algara sekulakoak** (3); **algarak egin** (7); **algarak egin zituen** (4); **algarak egiten** (3); **algarak entzun** (7); **algarak entzuten** (8); **algarak entzuten dira** (4); **algarak eta** (12); **algararen bat** (4); **algarari eutsi** (6); **algaraz hasi** (6); **algaraz hasiko** (3); **algaraz hasiko da** (3); **algaraz hasten** (3); **baina algara** (4); **barre algara** (136); **barre algara artean** (3); **barre algara bat** (9); **barre algara batean** (4); **barre algara batek** (4); **barre algara batekin** (3); **barre algara ederrak** (4); **barre algara egin** (6); **barre algara eta** (5); **barre algara handi** (6); **barre algara handiak** (5); **barre algara ozen** (3); **barre algara ozena** (4); **barre algarak** (63); **barre algarak egin** (3); **barre algarak entzun** (3); **barre algarak entzuten** (8); **barre algarari** (7); **barre algarari eutsi** (3); **barre algararik** (4); **barre algaratan** (3); **barre algaraz** (19); **barre algaraz hasi** (4); **barre algaraz hasiko** (3); **barre algaraz hasten** (3); **barre algarek** (4); **bere irri algara** (3); **ere algara** (3); **eta algara** (52); **eta algara batean** (4); **eta algara egin** (9); **eta algarak** (11); **eta algaraz** (7); **eta algarek** (3); **eta barre algara** (19); **eta barre algarak** (6); **eta barre algaraz** (3); **irri algara** (13); **irri algara burrunbatsu** (3); **irri algarak** (5); **sekulako barre algarak** (3); **zarata eta algara** (3); **zuen algara** (4); **zuen barre algara** (5)
>
> **algaren artean** (9); **barre algaren** (9); **barre algaren artean** (3); **barre algaretan** (3)

---

algaraka **1** *adlag* algaraz, algara eginez.

-Kaka zaharra! -hots egiten genuen, **algaraka**. Aingeru Epaltza

Mahaikideek txaloka eta **algaraka** hartu zuten ateraldia. Irene Aldasoro

Gabi orduan **algaraka** hasi da -"uztak, joder! uztak! Jokin Muñoz

Bere txapeldun ospetsuak hartuko dituen kankarreko guztiekin, hirugarren rounderako ez du jakingo bere izena zein den ere, eta, orduan, barkatuko didazu **algaraka** hasten banaiz. Koldo Biguri

Nire egoera psikologikoa kontuan hartuta -urduri eta barre egiteko girorik desegokienean-, gero eta zailago egiten zitzaidan **algaraka** ez hastea. Ramon Saizarbitoria

Curtis bere onetik irten eta barrez lehertu zen, eta **algaraka** aritu zen atergabe. Mirentxu Larrañaga

Alaitasun iturria, isurian hasiz gero erresuma osoa irri **algaraka** jartzeko modukoa. Agustin Otsoa

-Etor hadi, arraioa! Zer moduz dago auzoko ijitoa? -esan dio **algaraka**. Jokin Muñoz

Bambi ematen dik!", esaten zion Idoiak, **algaraka**, izen bereko filmeko pasarte ezagun bat gogora ekarriaz; baina Jon, gizajoa, burua lurretik ezin jasoaz zebilen. Jokin Muñoz

Sarumanek barre egin zuen, **algaraka**. Agustin Otsoa

-Krema zuri bat -segitu zuen neskak, **algaraka**. Jokin Muñoz

Algaraka eta elkarri mokoka jarraitu zuten pixka batean, arlotekerian erori gabe, halere. Pedro Alberdi

Kristinarekin-eta, "begiraion harunzko aza hosto aurpegi hari" eta kar-kar-kar **algaraka** denak, baina zerarik, intentzio txarrik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Lagunengana itzultzean, **algaraka** eta besoekin keinu irrigarriak eginez hartu zuten. Aritz Gorrotxategi

Farleyk zapladatxo batzuk eman zizkion bizkarrean **algaraka** barrez. Irene Aldasoro

Ingeles xelebre bat tematu zuan hori kalkulatzen -esan zuen don Ottaviok, barrez **algaraka**-. Jon Muñoz

Halako batean, barre ergelka eta **algaraka** hasi zen. Xabier Olarra

Drogatuta dagoenean batek gauza arraroak egiten ditu, argazkiak tarratatu, norberaren miserian barrena **algaraka** nabigatu, kaxoietako gauzak atera eta lekuz aldatu. Harkaitz Cano

Seme-alabak, amari aurrea hartuta, eskaileretatik behera **algaraka** jaisten ari ziren bitartean, bera, maleta egin berria eskutan, ahul sentitu zen une batez, zalantzati, ate horren atzean azken 10 urte uzten ari zelako. Berria - Kultura

Malko iheskorren bat ezkutatu ezina, barruko hunkidura **algaraka** disimulatu nahia, muxu bat, beste bat, beste bat, azkeneko muxua... Xabier Mendiguren Elizegi

2 *barre algaraka*

Batzuetan, sagardo gehiegi edaten genuen, Sebastianek berak ere bai, eta **barre algaraka** hasten ginen zeinahi huskeriarekin. Bernardo Atxaga

Nozdriov **barre-algaraka** hasi zen orduan, gizabanako gordin eta osasuntsuek bakarrik egiten duten irri ozen horrekin. Jose Morales

Barre-algaraka hartu zituen markesak alkatearen hitzak. Anjel Lertxundi

Barre-algaraka segitu zuen hizketan, festan izandako hainbatek eman omen zizkioten ele eta ziriak komentatuz, eta, halako batean, Adarentzat goraintziak eman eta gero, telefonoa eseki zuen. Anjel Lertxundi

Barre-algaraka ari zen eta, barrearen eraginez itotzear, eskaera errepikatzen zion, eskua luzaturik. Jose Morales

Barre algaraka eraso dio Dylanek, eutsi ezin izaten den karkara ero horrekin. Pako Aristi

Angelina, Alicia eta Katie **barre-algaraka** ari ziren Freden eta Georgeren txisteengatik. Iñaki Mendiguren

Barre-algarak entzuten zituen beti Raymondek, eta **barre-algaraka** erantzuten zien berak ere, eta eskuak gorantz altxatzen zizkien. Mirentxu Larrañaga

-Zu ona zara? Bai? Ona zara? -galdetu zuen Liubak, **barre-algaraka**, izugarri alaitu balitz bezala. Jose Morales

Neskak oraindik tarte luze bat eman zuen **barre algaraka**, Aitorren bekozkoaz ohartu gabe. Jokin Muñoz

Hara non ikusten dugun italianoa bestaldeko espaloian, nire zain nonbait, niregana etorri baitzen kaminoa pasatuz, eta nirekin batera ateratako beste neskak iji eta aja, **barre algaraka** elkarri ukondoarekin joka. Xabier Mendiguren Elizegi

Behin eta berriro amesten zuen gurasoak argi-distira berde batean desagertzen zirela ahots bat kar-kar **barre-algaraka** entzuten zuen bitartean. Iñaki Mendiguren

Hori ere badugu!, esan zuen Carlosek **barre algaraka**. Bego Montorio

3 *irri algaraka*

Zorionez, malenkoniazko une honetan bazeuden bi morroi, Santaremeko sakan estali eta ezkutu hartan zaldien zain gelditu zirenetako bi, eta **irri algaraka** hasi ziren. Jon Alonso

Hala ere, Gandalfen aurpegian kezkak eta tristurak eragindako zimurrak besterik ez zuen ikusi hasieran; geroago, ordea, arretaz begiratzean ohartu zen horien atzean poz handia zegoela: alaitasun iturria, isurian hasiz gero erresuma osoa **irri algaraka** jartzeko modukoa. Agustin Otsoa

Laugarrenean, ama gaixoak ezin izan zuen izen irrigarri haren lehenbiziko hiru silabak baizik ebaki, biok **irri-algaraka** hasi baikinen, inguruko ikusleen bekozko beltzei soraio. Alberto Ladron Arana

Nire konpainiako soldaduak zaiak altxatzera abiatu ziren **irri-algaraka**. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

algaraka ari (9); **algaraka ari zen** (3); **algaraka ari ziren** (4); **algaraka aritu** (3); **algaraka eta** (7); **algaraka hasi** (39); **algaraka hasi zen** (15); **algaraka hasi ziren** (9); **algaraka hasteko** (3); **algaraka hasten** (10); **barre algaraka** (74); **barre algaraka ari** (7); **barre algaraka hasi** (24); **barre algaraka hasten** (7); **eta algaraka** (17); **eta algaraka hasi** (8); **eta barre algaraka** (12); **irri algaraka** (4)

---

algaratsu *izond* algaraz betea.

Eta berriro irri **algaratsu** hura irteten zitzaion. Joxemari Iturralde

Biak batu dira barre zoro eta **algaratsu** berean. Paddy Rekalde

Narru akoltxatuaren kontra zartakoek sortutako hotsa sikuegia zen gimnasioaren durunda **algaratsuaren** gainetik nabarmendu zedin. Josu Landa

Mutua da istorioa, baina hotsek eta zaratek nabarmenago egiten dute protagonistaren noraeza, **algaratsuago** ikusleen tartekako barreak. Xabier Mendiguren Elizegi

---

algaratxo *iz adkor* algara txikia.

Lotsatu itxura eman nahi duen **algaratxo** batek erantzun dit lehendabiziko atetik: -Handik tira eta hortik tira, kapa apurtuko genuke. Anjel Lertxundi

Berak halako **algaratxo** espasmodiko batzuk egin ditu, etsiak hartuta bezala. Patxi Iturritegi

Atsegin zuen haien takoi-hotsa, zola gainean kliski-klaska, haien barre-**algaratxoak** arnasestuka, eta haien beso goratuak, gorpuzkera nabarmen irudikatzen zietelarik. Mirentxu Larrañaga

---

algaraz *adlag* algaraka.

Ondoko orrialdeetan, ordea, maiz agertzen da ez irribarrez bakarrik, barrez eta **algaraz** ere bai, begiak malkotan bustitzeraino askotan. Joxean Agirre

Zur eta lur geratu nintzen, ezkontzeko proposamena **algaraz** eta barre ozenez hartua izan baitzen. Oskar Arana

Belarrondoko baten imintzioa egin zenion, **algaraz**. Koldo Izagirre

-Txemari atera zaizkio, kristoren ile pila! -esango zuen Txufik, eta beste guztiok **algaraz** erantzun. Xabier Mendiguren Elizegi

Harakin gazteak **algaraz** burua atzerantz eraman zuen. Lopez de Arana

---

algaretean **1** *adlag* nabigazioan, urak edo haizeak nora gabe bultzatuta. ik **jito 2**.

Aldendu egin ginen bazterretik, harkaitzen kontra jota ostera itsasorantz zetozen bagek kulunka handiak eragiten zizkiguten, **algaretean** ibili ginen une batez, egoskor Engels bere ariketan eta ni ahalegin hura iraindu nahi ezik mutu. Koldo Izagirre

2 irud/hed

Baina langileen auzia aipatu zuen orduko, Soterok, horren xeheki adostua genuena **algaretean** utzita, oihu egin zuen eskua jasoz, "Aizak!", harengana itzuli ziren buru guztiak, isiltzeko esan zioten, hala hobe, baina apezak eten egin zuen bere jardurioa, lasai egoteko agindu zuen, uzteko hizketan mutilari. Koldo Izagirre

---

algarroba *iz* algarrobo leka.

Algarrobaren leka barruko garaua arabiar farmazialarien pisuetan azaltzen da, eta lau garagar aleren balioa du. Xabier Kintana

Hitzez hitz, **algarroba** baten hazia. Xabier Kintana

---

algarrobo **1** *iz* lekadunen taldeko zuhaitza, enbor-lodia, abereen bazka gisa erabiltzen den fruitua ematen duena *(Ceratonia siliqua)*.

Algarrobo batera heldu zelarik, aitzurrak metalezko zerbait jo zuela ohartu zen. Patxi Zubizarreta

Prosopis Chilensis Bolivia bertako **algarrobo** arbolaren fruituekin egindako produktuen patentea eman diete Guarani indigenei. Berria - Gaiak

Algarrobo landarearekin egindako produktuen patentea eman diete Boliviako indigenei. Berria - Gaiak

2 *algarrobo-goma* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Elikagaiekin erabili izan ditudan jateko azalak oinarri bera izan dute: esne serumezko proteina bereizia, **algarrobo goma** eta almidoia. ETC-prentsa

Algarrobo-goma edo E410 algarrobotik ateratako goma begetala da, galaktomanano motakoa. Algarrobo lekaz egina, lodigarri erabiltzen dute elikagaigintzan. ETC-

entziklopedia

3 *algarrobo-leka* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

O'Molloyrekin poliki joan zen Mary's Abbeyraino, non mandazain batzuk ari baitziren gurdietara kargatzen **algarrobo-leka** eta palmondo-irin zakuak, O'Connor Wexford marka zutenak. ETC-literatura, saiakera

Algarrobo-goma edo E410 algarrobotik ateratako goma begetala da, galaktomanano motakoa. **Algarrobo lekaz** egina, lodigarri erabiltzen dute elikagaigintzan. ETC-entziklopedia

Algarroboa landatzen zuten nekazariek eta **algarrobo-leka** esportatzen hasi zen Asia aldera. ETC-entziklopedia

Bada, oso erraza da: **algarrobo-lekarekin** pure lodia prestatu, ogitan albardatu eta frijitu egin behar da. ETC-prentsa

---

algatxo *iz adkor* alga xumea.

Adderley-k errepikatzen zuen: "Eta hori guztia **algatxo** zuri baten sustraitik irten da!". Juan Garzia

---

algebra ik **aljebra**.

---

algebraiko ik **aljebraiko**.

---

algebraikoki ik **aljebraikoki**.

---

algeriar ik **aljeriar**.

---

algoazil ik **aguazil**.

---

algodoi *(ETCn **61** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kotoi** agertzen da) iz* kotoia.

Zakurrak gogaitzen bazaituzte, sartu **algodoia** belarrietan eta nik bezalaxe egingo duzue lo. Koldo Biguri

Eskuetan muin ematen dio berorri nire andere Dulzinea Tobosokoak eta berori zer-nola ote dagoen jakinarazteko eskatzen dio; eta, beharraldi larrian dagoela bai eta, mesedez, **algodoizko** gonatxo hau bahituaz, dozena-erdi bat erreal edo eskuera dauzkanak emateko eskatzen diola. Patxi Ezkiaga

Jakin behar baitu berorrek, areago direla **algodoizkoak** nire haragiak, espartzuzkoak baino. Patxi Ezkiaga

Auziaren alderdi teknikoari begira, hara non azaltzen den teknikotasuna ustezko **algodoiaren** frogatzat, edozein ideologia edo politika ikuspegitatik izatea neurriaren aldeko defentsa: [...]. Iñaki Heras

Italiaren irudia zuen zapi bat eta **algodoi** txarreko traje bat eman zizkidaten, eta paper bat esanez egina nuela nire betebeharra. Koldo Biguri

Haurrei ahoan **algodoi** bolatxoak sartu eta ito. Gotzon Garate

Seguru-seguru jakin nuenean keinua niretzat zela, hurbildu egin nintzen, nahikoa harriturik, **algodoi**-fardelak eta errinozeroen adarrak garraiatzen zituzten morroiak bazterrera bultzatuz. Jon Alonso

---

algonkin *iz* Ipar Amerikako indigena etnia.

Gustave Flaubert-ek eta Maxime Du Camp-ek, hamar bat urte geroago Pointe du Raz-en: "Hemen gaude, elkarri begira, erdi irribarretsu, erdi haserre, inork ulertzen ez gaituela, samien edo **algonkinen** artean baino galduago". Iñigo Aranbarri

---

algoritmiko *izond* algoritmoarena, algoritmoari dagokiona.

Hori gabe, besteren asmoak eta gogo-egoerak "konputatu" egin behar ditu, haiek **algoritmiko** eta esplizitu bihurtzen saiatu, zeren gainontzekook nortasunari atxikia baitugu ezagumen inplizitu hori. Xabier Olarra

Kuhnen iritziz, zientzia-garapenak (hots, teoriaren edo, hobeto esan, paradigmaren hautaketa-prozesuak) ez dio zientziaren razionaltasun **algoritmikoari** jarraitzen, irizpide psiko-soziologikoei baizik. Askoren artean

Ikuspegi-modu honen ordezkari tipikoenak hirurogei ondoko urteetan oso boladan egon ziren teoria "konbinatorio" edo **"algoritmikoak"** izan dira; urte horietan, izan ere, informatika indartzen ari zelarik, konbinatoria aski konplexuen bidez gertaera natural guztien azalpenak eman ahal izango zirela uste izatera iritsi baitzen. Josu Zabaleta

---

algoritmo **1** *iz* arau multzoa, problema bat ebazteko egin behar diren urrats zehatzen segida gauzatzen duena.

Hartarako, "kolore-kubo" bat diseinatu zuen, **algoritmo** bat, garunak uhin-luzera desberdineko distirak konparatzeko eredu bat zena, berez. Xabier Olarra

Tamainaren jarraitasuna [...] erretinako irudiaren tamaina distantziari buruzko informazio batekin lotzen duen **algoritmo** baten ondorioa izango litzateke. Josu Zabaleta

Teoria hauen arabera, konbinazio horietan, **algoritmo** horietan, erretinako informazioaren analisitik atera daitezkeen berezko aldagaiez gainera, bestelako gertaera batzuei dagozkien kanpotiko aldagaiak ere sartzen dira. Josu Zabaleta

Oso garbi utzi behar da begia ez dela begirada: ikusmenezko informazioaz edo **algoritmoez** hitz egiteak badu interesa, baina ez du argitzen nork taxutzen dituen **algoritmo** horiek, nor baliatzen den informazio horretaz, eta zergatik. Josu Zabaleta

Algoritmo sistematiko baten laguntzaz egin zitekeen eragiketa. Jon Muñoz

Obra **algoritmo** genetikoaren arabera artistak berak sorturiko programa informatiko batek irizpiderik gabe proiektatzen ditu hitzak hormetan, ikusleen gorputzetan. Berria - Kultura

2 *algoritmo irenskor* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Dijkstra-ren algoritmoa **algoritmo irenskorra** da, pauso bakoitzean kostu edo distantzia txikiena duen ibilbidea aukeratzen baitu. ETC-entziklopedia

Oro har, multzoen banaketa eta elkarketa horiek **algoritmo irenskor** baten bidez egiten dira. ETC-entziklopedia

3 *algoritmoen diseinu* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Algoritmoen diseinuak arazoen soluzioari eta ingeniaritza algoritmoetarako metodo edo prozesu matematiko bati erreferentzia egiten dio. ETC-entziklopedia

4 *kongestioa kontrolatzeko algoritmo* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Kongestioa kontrolatzeko algoritmoak garraio-sare batean adabegi nodo batek itomen egoera ekiditeko erabiltzen diren prozedurak ditugu. ETC-entziklopedia

Horrez gain, Geografia Informazioko Sistemak (GIS) edo garraio sarearen **kongestioa kontrolatzeko algoritmoak** pentsaera arkitektoniko berritzaileak sortzen ari dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *Nagle algoritmo* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Nagle algoritmoa, John Nagle-ek sortua, TCP (Transmission Control Protocol) protokoloan oinarritutako sareen efizientzia handitzeko prozedura bat da. ETC-entziklopedia

6 *ordenatze algoritmo* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Salzberg-ek eta haren kideek (1990) kanpoko **ordenatze-algoritmo** banatu bat deskribatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Quicksort (batzuetan ordenazio azkarra edo partizio-truke bidezko ordenazioa deitzen dena) **ordenatze algoritmo** edo ordenatzeko algoritmo eraginkorrenetako bat da. ETC-entziklopedia

Tony Hoare informatikari britainiarrak 1959an garatu eta 1961ean argitaratu zuen, ohiko **ordenatze-algoritmo** bat da oraindik. ETC-entziklopedia

7 *zifratze algoritmo* *(corpusean ez dago; ETCn **47** agerraldi)*

Datuak ulergaitzak egiteko (zifratzeko) algoritmo baten bitartez egiten da, **zifratze algoritmoa**. ETC-entziklopedia

Adibidez, Interneteko harra, nahikoa denbora gutxian, ehunka pasahitz on line probatzeko gai zen, eta, horretarako, erabiltzen zuen erasotzen zituen UNIX sistemetan ezarritako **zifratze-algoritmo** arrunta baino **zifratze-algoritmo** eraginkorragoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zifratze-algoritmo desberdinak direla-eta, kontuen pasahitzak modu berezian sortu beharko dira Linux makinan ondoko komandoarekin: ETC-zientzia, zuzenbidea

Bidali baino lehen, igorleak mezu hori **zifratze-algoritmo** baten bidez zifratuko du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zifratze-algoritmo orokorra zifratze-metodo espezifiko bihurtzen duen elementua. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **algoritmo baten** (3)

---

algortar *izlag/iz* Algortakoa, Algortari dagokiona; Algortako biztanlea.

Unai Elorriaga **algortar** idazleak bat-bateko fama bildu zuen jaz, Espainiako Narratiba sari gorena irabaziz "SPrako tranbia" obrarekin. Herria

Iñigo Landaluze **algortar** txirrindularia, Euskaltel taldekoa, nagusitu da Dauphine Libere lasterkaldian. Herria

Bera Aitor Izagirre da, **algortarra**, margolaria, poeta, idazlea eta orain musikaria. Berria - Kultura

Marian Perez del Rio **algortarra** Martuteneko espetxean kartzelatu zuten atzo eguerdian, Espainiako Auzitegi Nazionalak baldintzapeko askatasuna kendu ostean. Berria - Euskal Herria

Aitor Gonzalez Euskalteleko txirrindulariak irabazi du Suitzako itzulia, talde bereko Roberto Laiseka **algortarrak** duelarik mendiko saria beretu.Gineako jatorriko Afrika abeslari **algortarraren** estraineko diskoa. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **paia algortarra** (3)

---

alguazil ik **aguazil**.

---

alha 1 *ipar* bazka.

Alha-tokietara heltzean, beti jestu berak bihurdikatzen zituen Peterrek. Itxaro Borda

2 *alha izan* ari izan.

Bestaldetik justizia **alha** delarik zuzenbidearen bide zuzenetik, Erromako auzitegietan bezala, gorteko konplimenduetarik bazter, ez dira hainbeste kontutan hartzen jendearen erran-merran kortesiazkoak, baina bai kasuen larritasuna. Piarres Xarriton

Gaztedanik etorri zaizkit bada, XIX. mendetik XX. menderateko bihurgunean, eliza dorrearen azpian **alha** ziren errepublikazaleen eta erregezaleen arteko liskarren oihartzunak, edo gutartean zebiltzan frantseszaleen eta euskaltzaleen eztabaidak. Piarres Xarriton

Norbait zuan segurki baina izpiritua beti **alha** zerabilkion, ez zian sekula bakerik dastatzen, ez eta bozkariorik: oroitzen hiza ezezagun batzuk loaldian zegoela pegartegian zetxikan sosa nola ebatsi zioten? Itxaro Borda

Graxiren izpiritua **alha** zebilen: igande aipatu hartan, erizain nagusia edo familiako medikua deitzekoa zena? Itxaro Borda

Dena dela, fedeaz edo fededunez ari garelarik, ez gara halere mintzo mundu zabalean **alha** diren sineste, erlijio edo ideologia mota guztiez; ez eta ere gutarik bakoitzak bere sekretuan gorderik dauzkan atxikimendu eta lokarri bereziez. Piarres Xarriton

· Bianan sartu aitzin, beste artzain bat, artaldea ogi landan **alha** ari zaiola. Piarres Aintziart

Hautazko leku bat bereiziko diten familiaren hilobian: hori dun gizaki batek **alha** dezakeen esperantza gorena. Joxan Elosegi

3 *alhan* *ipar* bazkatzen; ari izaten.

Hemen ere behiak **alhan**: abere hauen gostua Grekoen ataraxia bezain finkoa daiteke. Piarres Aintziart

Laster hasi zitzaion bekaitzaren harra **alhan**. Juan Garzia

Handik gora, apur batez oraindik badiraute artaldeek, bizi-ahalaren ertzean **alhan**. Joxe Austin Arrieta

Ez da gehiago amets hutsa, Europako Erkidegoa badabil, Ikatzaren eta Altzairuaren Erkidegoa **alhan** da. Piarres Xarriton

Bidean, pentze biluzi eta haizeek astinduen erdian, deus ez bailitzan, sokaz loturik, **alhan** zabiltzan ardiak zenbatu nitzakeen, bizpahiru bildots zeuzkatela aldamenean, libre eta galernarekin punpeka. Itxaro Borda

Ondoko pentze batean **alhan** ari ziren antxu talde batetako zenbait, hagun harek lilluraturik behar bada, lasterka sartu dira urean eta bertze 40 bat heier segi ito dira. Herria

Zainen tentsioa jabaltzeko, tropako gainerakoak herri behere hartan **alhan** zebiltzan poallak harrapatzen jostatzen ziren. Itxaro Borda

Kabala **alhan** plantatzen den bezala, iduri ez duela gelditzerik, ni ere,usaiaren bortxaz eta bidearen goxoaz, jarraian noa, gustuan. Piarres Aintziart

Ttette zakurra artaldea zaintzen zebilen eta astoa hantxe, **alhan**. Itxaro Borda

Barneko harra **alhan** ari zaio, berak ez baitaki sobera zergatik. Eneko Bidegain

Ardiek loriarik hoberenean **alhan** segitzen zutela, zeru beltzean ekialdetik ilargia jazartzen zitzaidan bitartean, deus eta ezer ez zen higitzen. Itxaro Borda

Euskal Kultur Erakundeak, Uzbekistaneko Frantziako Enbaxadarekin ukan dituen harremanen ontotik, kultura trukaketa aberats bat **alhan** ezarri du. Herria

Mihiak **alhan** hasi ziren berriz eta, herrian, denak kezkatuak ziren korapilo hura nola askatuko ote zen, Jaurenea-ko jauntxoaren eta haren bilobaren arteko topaketaz grinatsu. Elena Touyarou

Euskal Kultur Erakundeak, Uzbekistaneko Frantziako Enbaxadarekin ukan dituen harremanen ontotik, kultura trukaketa aberats bat **alhan** ezarri du. Herria

4 *alhan izan*

Ez da gehiago amets hutsa, Europako Erkidegoa badabil, Ikatzaren eta Altzairuaren Erkidegoa **alhan da**. Piarres Xarriton

Bazkarik gabeko belaian **alhan denak** ez du elikadura egokirik aurkituko. Pello Salaburu

Elur **alhan zen**, itxuren arabera gailurretako belarra gustukoa zuen. Michel Oronoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alhan ari (4); **alhan zebiltzan** (3)

---

alhadura *iz* gaizki eginaren sentimendua.

Gizakia doilortzen duen orok kezkatik eta **alhaduratik** isolatzen du, sinplifikatzera bultzatzen du eta hortaz ankerkeriara. Berria - Kultura

---

alhagia *iz ipar* bazkalekua, larrea.

Joanesen botzean, identifikazio hurbil eta min berdina nabarmentzen zen, malda, pentoka, larre, zerna gaitz edo bortuko **alhagia** zabaletarik ihes zihoan artzain kulturaren goresteko antolatzen ziren besta erraldoietan. Itxaro Borda

Pottoken **alhagi** lasaia. Herria

Alhagietako zergak. Herria

Mundarraingo **alhagietako** bideaz Jean Noel Machicote-k eskakizun bat ekarririk, Herriak erabaki du bide bazterren hestea, Herriko eta Labeguerie-ren lurren mugetan eta hola eztabadak geldituko dira. Herria

Ardi saldo galantaren sintesi-potretak ikusten ziren han, malkarretan gora elurraren auzuneko **alhagietara** igotzen, mantso-mantso, artzainak atzetik malin, zakur labrita ondoan punpaka. artalde zenbait hasiak ziren udako **alhagietarik** jausten, baina, orokorki, egun baketsuak ziren. Itxaro Borda

---

alhapide **1** *iz ipar* bazkalekua, larrea.

Zeren halakoak baitira, zinez, sentimenduak, elkarren aurkakoak, bai, baina elkarren beharra dutenak, batak bertzea baitu bazka eta **alhapide**. Joan Mari Irigoien

Alta bada, erromatar idazleak, **alhapide** ederrik aurkitu zukeen antzinako greziar ezagun anitzek landu alorretan, hala nola, Homeroren, Pitagorasen, Herodotoren, Aristotelesen, Polibioren eta, bereziki, Platon "adiskidearen" idazkietan. Piarres Xarriton

Gure larre mendixketan diren **alhapidek** badauzkatela sobera arbola. Herria

2 irud/hed

Zer ixtorioak ez ditu asmatzen haur baten irudimenak gutiagorekin? Hemen aldiz, eginik prestak, baditu irudimenaren **alhapideak**, filma fantastiko baten sekulako kanpo-barneak. Michel Oronoz

---

alharazi, alharaz, alharazten du *ad* abiarazi, ibilarazi.

Iduritzen zitzaion beraz Hegoaldeko haurrideek beren Unibertsitatea behar zutela lehenik ardietsi, eraiki eta, urte andana batez **alharazi**, euskarazko hizkuntza lehenik jende xehearen artean hedatzeko gisan. Piarres Xarriton

---

alhatu[1], alha/alhatu, alhatzen *(orobat **alatu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **alhatu** agertzen da)* **1** da *ad* bazkatu, larratu. ik **alatu**[1].

Suak garbitzen duela mendia eta errexten **alhatzeko** belar hobearen pusa. Herria

Cartierrek ezetz sinesgogor, felagen espioia dela, goi hauetan harriak baizik ez dituztelako **alhatzeko** ahuntzek. Xabier Montoia

2 du *ad* alharazi.

Erleak hor **alhatuz** ainhiz ezti ateratzen dute eta ber denboran trefla hori fekondatzen omen dute hazi ateratzeko izanez. Herria

Larratzeak, alabaina, ez du bakarrik erran nahi konfesioak entzutea eta penitentziako sakramentua ematea, baina eskualdeen eta herrien gaineko artzainak ezartzea ere bai, eta haien **alhatzeko** eta salbatzeko behar diren gai guztietan eskolatzekoa. Piarres Xarriton

3 irud/hed

Hitzaren belardiak **alhatzen** ditut hargatik. Itxaro Borda

Bortizkeriaren ondorioa bortizkeria, batak bertzea sorrarazten, bortizkeria bortizkerian **alhatzen**. Michel Oronoz

---

alhatu[2] ik **alatu**[2].

---

alhatzaile *iz* abereei bazka ematen dien pertsona.

Joanesek algara gordinaz **alhatzaileetarik** hintzela xuxurlatzen zatanan belarrira! Itxaro Borda

---

alhondiga *iz* laboreen eta beste jangai batzuen biltegia eta salerosketa gunea.

Alhondiga biltegi zaharra goitik behera birmoldatzen ari dira, bertan hainbat zerbitzu hartuko dituen auzo etxe handia eta aparkalekuak egiteko. Berria - Euskal Herria

Jo hona, jo hara, beste kale batean sartu nintzen, **Alhondigatik** hurbil. Javi Cillero

Bilboko **Alhondigak** 40.000 metro karratu izango ditu. Berria - Kultura

Batzarra egitekoak ziren atzo hainbat lagun Getariako **Alhondigan**, egungo egoera politikoaz eztabaidatzeko. Berria - Euskal Herria

2002an aurreratu zutenez, **Alhondigak** bi espazio nagusi izango ditu: kulturari zuzenduriko azpiegiturak egongo dira batean, eta kirolari eskainitakoak bestean. Berria - Kultura

Estilo arkitektoniko jakin bati jarraiki, lanik egingo ez duela argi eta garbi adierazteko, ondoko adibidea jarri zuen: **"Alhondiga** espazio zabala da, eta hori guztiori mantentzeko zutabe ugari behar dira. Berria - Kultura

---

aliantza **1** *iz* interes komunak defendatzeko ituna; batasuna.

Gizarte zibilak, ordea, ez dira taldekatze hutsak, **aliantzak** baizik, eta horiek lortzeko guztiz beharrezkoak dira leialtasuna eta itunak. Esteban Antxustegi

Antagonismoa utzi eta **aliantzak** ere egon dira, bai jeltzale eta sozialisten artean (Ardantzaren gobernuak, adibidez), bai ezker eta eskuineko abertzaleen artean (Lizarra-Garazi), bai PP eta jeltzaleen artean (Aznarren lehen urteetan), bai PP eta sozialisten artean (terrorismoaren aurka). Joseba Zulaika

Gehiengo absoluturik ez, eta UPFAk **aliantzak** egin beharko ditu legebiltzarrean. Berria - Mundua

Demokrata Askeen **Aliantzak**, esaterako, botoen %5 lor ditzake, eta horrek sozialistei emango lieke garaipena, bi taldeak koalizioan baitaude. Berria - Mundua

Martin Torrijos PRD Alderdi Demokratiko Iraultzailea zentro-eskuinekoa eta PP Alderdi Popularra eskuinekoa biltzen dituen PN Aberri Berria **aliantzaren** hautagaia zen. Berria - Mundua

Zin egin duzue: zoazte orain emandako hitza betetzera, zuen erregearen, zuen lurraren adiskidetasunaren **aliantzaren** izenean! Agustin Otsoa

"Entzungor egingo diote **Aliantzako** buruek gure zentzuzko eskaerari?", galdetzen zuen guztiz etsita Sud Ouest-eko kazetariak. Patxi Iturritegi

Horretarako emakume kirolarien arteko **"aliantza"** behar-beharrezkoa dela uste dute. Berria - Kirola

Sri Lankako presidente Chandrika Kumaratungaren SLFP alderdiak **aliantza** bat osatzeko hitzarmena sinatu zuen atzo JVP Janatha Vimukthi Peramuna alderdi marxistarekin. Berria - Mundua

Justxenko Europako Batasunarekin eta Ameriketako Estatu Batuekin harremanak indartzearen aldekoa da; Janukovitx, aldiz, Errusiarekiko **aliantza** sendotzearen aldekoa. Berria - Mundua

Azken datuen arabera, presidenteak agintea gal dezake oposizioa **aliantzan** biltzen baldin bada. Berria - Mundua

Johannesburgek balio izan du gizarte iraunkortasunari eta ingurumenari loturiko arazo sorta bat iritzi publikoari aurkezteko; are gehiago, hainbat gizarte eragileren arteko **aliantzak** sendotzea ahalbidetu du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horregatik, **aliantza** global bat behar dela esan zuen, "limosna eskatu beharrean justizia eskari batean oinarritutako **aliantza** bat". Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Lau urteren buruan, enpresa erabat pribatua izan beharko du berriro ere, eta sektore estrategikoetan beste enpresa batzuekin **aliantza** finkoak izan beharko ditu. Berria - Ekonomia

FDPko presidente Guido Westerwelleren hitzetan, hiru alderdien arteko **aliantza** eraginkorra izan da. Berria - Mundua

Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan lortutako emaitza kaskarrek ahuldu egin baitute bere alderdi Forza Italiak, UDCko demokristauek, eskuineko **Aliantza** Nazionalak eta Lega Nord federalistek osatutako gobernua. Berria - Ekonomia

BJP Bharatiya Janata Alderdiak zuzentzen duen **Aliantza** Nazional Demokratikoak eskuin abertzaleko 22 alderdi hinduista daude bertan Legebiltzarrerako hauteskundeak galdu zituen atzo. Berria - Mundua

Inkestek botoen %53-56 inguru jasoko dituela diote, eta Traian Basescu **aliantza** liberal-demokratako hautagaiarentzat %44-47ko emaitza aurreikusten dute. Berria - Mundua

Auzune aberatsenetako burgesiak, patronalak, CTV sindikatuak -seguru asko, Amerikan dagoen usteldunenak-, eta masa-hedabide handienek osatu zuten **aliantza** neokontserbadorea. Txema Ramirez de la Piscina

Aliantza militarrari ezinezkoa izan zaio barne zauriak ixtea. Berria - Mundua

Osatzekoa den gobernu berriaren buru jarraitzeko Al Jaafari hautatu duen Irakeko **Aliantza** Batua xiita erlijiosoen koalizioak, aldiz, 128 diputatu dauzka. Berria - Mundua

Hind al Naim Kjaer IPA Irakeko **Aliantza** Patriotikoko ordezkaria da Danimarkan. Berria - Mundua

Bi dira hautagai nagusiak: ARENA **Aliantza** Errepublikano Nazionalista eta FMLN Askapen Nazionalerako Farabundo Marti Frontea. Berria - Mundua

NATOko Kontseiluaren bilera horretan parte hartu baldin bazuen ere Errusiako Atzerri ministro Sergei Lavrovek, Moskuk nahiko begi txarrez ikusten du lehenago bere eraginpean ziren herrialde batzuk **Aliantza** Atlantikoko kide izatea. Berria - Mundua

Bosnia-Herzegovinaren egonkortasuna bermatzeko betebeharra izango duen Europako Batasunaren EUFOR indarrak NATO **Aliantza** Atlantikoaren segida hartu zuen atzo. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan)

Aldi bakoitzean, posizio hegemonikoaren beheraldiarekin batera, nazioarteko **aliantza**-sistema ere hondatu zen eta herrialde lehiakideak sortu ziren: Ingalaterra eta Frantzia XVIII. mendean, Estatu Batuak eta Alemania XX. mendearen hasieran, Europar Batasuna eta Japonia XX. mendearen azken laurdenean. Koro Navarro

Israelgo Alderdi Laboristako buruzagi Simon Peresek "lehen ministroaren erretiratze plana gauzatu ahal izateko" onartu duela gobernu **aliantzan** sartzea esan zuen atzo. Berria - Mundua

Asteartean Nazio **Aliantza** Tamila (TNA) alderdiko hautagai bat hil zuten ekialdeko Batticaloa hirian. Berria - Mundua

Herri **Aliantza** Iraultzaile Amerikarreko hautagai. Berria - Mundua

Horren aurrean gizarte **aliantzak** behar ditugu, eta borroka zabal bat kultura, politika eta gizarte alorretan. Berria - Ekonomia

4 ezkontzako eraztuna.

Maria Sara doktorearen eskuek ez dute eraztunik, ezta **aliantzarik** ere. Jon Alonso

Aitonaren urrezko **aliantza** gure arrebak hartu zuen ezkondu zenenean. Mikel Hernandez Abaitua

Laster ezkontzeko itxaropenez dabiltzan bidaiari bakartiei, patrikara eskua sartu eta giltzak biltzen dituen uztaitxoan hatza sartzean **aliantza**-eraztun bat eta konpromiso inexistente bat imajinatzen baitute.` Harkaitz Cano

5 ***aliantza militar***

Astelehenean Irakeko indar armatuak NATOk trebatzea hitzartu zuen **aliantza militarrak**. Berria - Mundua

6 ***marka aliantza*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Marka aliantza: bi marka ezberdinen batura da, beste produktu bat sortzeko asmoarekin. Teknika honen helburua errentagarritasuna lortzea izan ohi da. Adibidez, Milka eta Lu ateratako txokolate barra. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aldeko aliantza** (4); **aldeko aliantzak** (3); **aliantza atlantikoak** (9); **aliantza atlantikoan** (3); **aliantza atlantikoaren** (4); **aliantza atlantikoko** (7); **aliantza bat** (9); **aliantza batua** (9); **aliantza batuak** (10); **aliantza batzuk** (4); **aliantza behar** (3); **aliantza berri** (3); **aliantza da** (4); **aliantza egin** (6); **aliantza egitea** (3); **aliantza estrategia** (3); **aliantza estrategikoa** (3); **aliantza eta** (5); **aliantza hautsi** (3); **aliantza honen** (3); **aliantza hori** (3); **aliantza librea** (7); **aliantza libreak** (5); **aliantza librearen** (3); **aliantza libreko** (4); **aliantza libreko eal** (3); **aliantza nazional** (5); **aliantza nazional demokratikoak** (4); **aliantza nazionala** (4); **aliantza nazionalak** (3); **aliantza nazionaleko** (4); **aliantza osatu** (3); **aliantza patriotikoko** (3); **aliantza politika** (5); **aliantza politikak** (3); **aliantza politikoa** (4); **aliantza politikoak** (4); **aliantza politikorako** (3); **aliantza politikorako ateak** (3); **aliantzak eta** (3); **aliantzako kide** (4); **arena aliantza** (3); **arteko aliantza** (20); **da aliantza** (5); **duen aliantza** (6); **eta aliantza** (8); **eta aliantzak** (3); **europako aliantza** (24); **europako aliantza librea** (7); **europako aliantza libreak** (5); **europako aliantza librearen** (3); **europako aliantza libreko** (4); **g aliantza** (3); **gobernu aliantza** (5); **gobernu aliantza hautsi** (3); **irakeko aliantza** (27); **irakeko aliantza batua** (8); **irakeko aliantza batuak** (8); **irakeko aliantza patriotikoko** (3); **nato aliantza** (10); **uia irakeko aliantza** (5); **zuen aliantza** (3); **zuzentzen duen aliantza** (4)

---

alias **1** *adlag* beste izenez.

Joan Azpilicueta **alias** Jaunxarra. Patziku Perurena

Teodoro, 54 urtekoa, **alias** Teo, **alias** IBM. Bernardo Atxaga

Eta berehala, hara Christian Aguerre **alias** Joanes Kaolin auzitegiaren aintzinean. Herria

Benetako ihesgin, benetako lapur, benetako hiltzaile dago kukutua orain Agirre'tar Nikola, **alias** Metxa, presondegi guztietako aittitte, ardirik gabeko sarobe baten pareta ostean. Koldo Izagirre

Hans Rabener prusiar espiak (**alias** Viktor Runeberg) pistola automatiko batez eraso zion atxilotzeko ordena zekarkion Richard Madden kapitainari. Juan Garzia

Lau egunen buruan jakin zuen Herriak Jérôme Lafitte **alias** Txoko arrastatua, galdezkatua eta kartzelaratua izan zela. Itxaro Borda

Eratortze hori zuzena bada, basileus parean jartzen du kral hitzarekin, honek "errege" esan nahi duelarik hainbat eslaviar hizkuntzatan, eta jakina denez Karolus Magnus-en, **alias** Karlomagnoren, izenetik dator. Iñaki Mendiguren

Gure moja, sister Grace, **alias** Mistress Saunders, **alias** Maureen, **alias** Dee, **alias** hainbeste gauza, esango nuke klub hartan Mistress Rivera zela eta Fernandoren emaztearena egiten zuela, saiatu eta saiatu egin zen Tracy gizartean egokitzeko, baina ezin izan zuen, ezta nik ere. Karlos Zabala

Gasteizko Fakultatean batzarra, **alias** asanblada Mendebaldeko itsasontziak, K.o. 1440 eta 1490 bitartean sortuak, aspaldi Mediterraneoan arraunez ibili zen "ontzi luzearen", **alias** galeraren, puntu indartsuak gutxienez ondorengo hiru belaontzi hauen ezaugarriekin elkartzen zituen. Iñaki Segurola

Polizia gizonei **alias** indar errepresiboei eskatzen zituzten hiru zuzenbide ezberdinekiko paperak erakutsiko nizkien eta "uufff" ikaratia askatuz pasatzera deituko ninduketen, hotz. Itxaro Borda

2 (izen gisa)

Ordezkariaren izena, George McAlpin, paper eta ziurtagiri guztietan ageri zen: Ripleyk erabili ohi zuen **alias** -a zen. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alias komandantea (10); **alias komandanteak** (3); **genevako alias** (3)

---

aliatu, aliatu(tu), aliatzen **1** da/du *ad* interes komunak defendatzeko batu.

2 (era burutua izen edo izenondo gisa)

Aliatuak Sizilian sartu dira. Josu Zabaleta

Agorrilaren 15ean, Andre dena Mari egunean, Marsella ondoan, Normandian egin zen bezala, lehorreratu ziren **aliatuak**. Herria

Oren bat berantago, gure burdin-bide hau **Aliatuek** moztu zuten eta denak hor berean sarraskituak izanen ginen. Michel Oronoz

Afganistan "laguna eta **aliatua** " dela gaineratu zuen Bushek. Berria - Mundua

Gure aliantzak aurre egitea baino gehiago lortu du, zabaldu eta hazi egin baita; gaurdanik 26 **aliatu** gaude, bata bestearen segurtasuna eta lurralde osotasuna zaintzeko konpromisoa hartua daukagu. Berria - Mundua

Ia denen etsai eta ia denen **aliatu** izan da azken urteotan. Berria - Mundua

Denak logela berean, denak lerroturik, **aliatu** diren bi armada txiki bezalaxe, bat eginda aspaldiko arerio zahar bati aurre egiteko. Joxemari Iturralde

Roosevelten Etxe Zuriak galdatu zien hara joatea, haren **aliatu** Txiang Kai-Shek eta honek boterea eskuratzeko lehian zituen aurkariei buruzko inteligentzia-informazioa bil zezaten. Edorta Jimenez

Legebiltzarreko bozeramaile eta milizien **aliatu** Sharif Hassan xekea ez zegoen ados. Berria - Mundua

Euskotarren ahaleginek huts egin zuten, beren **aliatu** ustez nagusi Ameriketako Estatu Batuek ez baitzuten ezer egin Espainian erregimen aldaketarik, artean behintzat, gauzatu zedin. Edorta Jimenez

Gustu garratz bezain sotil bat gozatzen ote zuen bereizkuntzaren legeei ez jaramon eginik; ez ote zen, finean, isilpean, **aliatu** bat, nigan **aliatu** bat bilatzen zuena. Juan Garzia

Zapatero formula berarekin etortzen baldin bada hona, Artur Masekin egin duen argazki bera bilatuko du CiUren euskal **aliatuarekin** , EAJrekin alegia. Berria - Euskal Herria

Kazan izan baitzen mundu iraniko musulmanaren ipar-ekialdeko gotorlekua, eta hura erori ondoren ez zegoen oztoporik -oihana eta izotza izan ezik, kosako nomada borrokalarien ohiko **aliatuak** - errusiar Kristandade Ortodoxoaren aitzindari haiei Uralak igarotzea eragozteko. Iñaki Mendiguren

India, herrialde **aliatua** den heinean, abantaila nuklearrak ditu ituna urratu duen arren. Berria - Harian

Eskarmentu luzeak erakutsi zionez, bere larruazal berez beltzaranak hobeki erakartzen zituen soldadu **aliatuak**. Patxi Zubizarreta

Terraza haietan emirraren gortea kokatuko zen, eta, haren ondoan, khan **aliatuak** , khanerrietako goi agintariak eta Turkestango subiranoen haremak. Karlos Zabala

Aliatuek Alemaniako Ruhr aldea okupatzen zuten bitartean Estatu Batuak hasi ziren parte zuzena hartzen Erdialdeko Ameriketan. Pello Salaburu

Hamar egun lehenago, amore emateko exijitu zioten **aliatuek Tokiori** , Postdameko Deklarazioan. Berria - Mundua

Bigarren Mundu Gerra amaitzeko bost hilabete falta ziren argazkiak atera zituztenean, eta **indar aliatuek** aurrera egiten zutenez, agintari naziak sarraskia areagotzen ari ziren. Berria - Kultura

Bigarren Mundu Gerra amaitzeko bost hilabete falta ziren argazkiak atera zituztenean, eta **indar aliatuek** aurrera egiten zutenez, agintari naziak sarraskia areagotzen ari ziren, Williamsek azaldu duenez. Berria - Kultura

Esan zuen **aliatuek naziekin** jokatu zuten bezala jokatu behar dela haiekin. Berria - Euskal Herria

"Gerla Handi" horren ondotik, **amerikanoen laguntzarekin** , frantses eta ingeles aliatuek gaina hartu zutelarik, 1918an, Georges Wilson Ameriketako presidenteak berriz aipatu zituen aspaldiko Nazionalitateen printzipioa eta Populuen Autodeterminazio Eskubide agertu berria, printzipio horien arabera antolatu nahiz Europako mapa berria. Piarres Xarriton

"Hitzak ekintza" **bihurtzeko garaia** dela esan, eta aliatuengana hurbiltzeko eskatu zion Bushi Massachusettsko senatariak. Berria - Mundua

Poliki-poliki, lausoki, doi-doi jabetuz gindoazen bakarrik geundela, ez genuela **aliaturik** berarekin konta genezakeenik. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Blairren **aliatu** leiala da Milburn eta ika-mikak izan zituen Brownekin ministroa zenean osasun sisteman eginiko erreformak direla eta. Berria - Mundua

Sasian, gerran bezala, inork ez du aukeratzen ahal laguna, etsaiak agintzen du norengana, nor hartu beharko duzun **aliatu** taktiko. Koldo Izagirre

Buruzagi independentziazaleak, presidente kargua hartu ahala, Flosseren gobernua Jacques Chirac Frantziako presidentearen **aliatu** hurbila ikertzeko ekimena abiatzeko agindu zuen. Berria - Mundua

Lehen aldia da Washingtonek halako agindurik ematen duela urte luzez beren **aliatu** estua izaniko herrialderako. Berria - Mundua

Filipinetako oposizioak **aliatu** indartsuak baditu ere, Arroyok ez du sostengu makalik. Berria - Mundua

Europako kide eta **aliatu** garrantzitsu izan edo bazterrean geratzen garen erabakitzeko garaia da. Berria - Mundua

Erroman izango da gaur bertan eta Iraki eraso egitekotan **aliatu** sutsua izan duen Silvio Berlusconirekin hitz egingo du Joan Paulo II.a Aita Santuarekin bilera izan aurretik. Berria - Mundua

Erromatar elizaren lehen bulkada, esnatzen ari zen Mendebaldeko intelektoak Elizaren **aliatu** intelektual heleniko zaharraren aurka egindako erasoa gaitzestea izan zen. Iñaki Mendiguren

Australia izan da Washingtonen **aliatu** nagusietako bat gerra horretan. Berria - Mundua

Iraki burujabe izaten uzteko itxura handirik ez du Etxe Zuriak eta **aliatu** ohiek badakite. Berria - Mundua

Irango Gobernuak joan den asteartean gai nuklearraren ikerkuntzarako egitarauei berrekiteko hartu zuen erabakiak kezka sortu du Teheranen ohiko **aliatua** den Moskun ere. Berria - Mundua

Ankara Washingtonen aspaldiko **aliatua** da. Berria - Mundua

3 irud/hed

EAJko EBBko idazkari nagusi Josune Ariztondok EAri gogorazi zion gaur egun bi alderdiak **"aliatuak** " direla euskal gizartean, udal aginteak eta Eusko Jaurlaritzako gobernua osatzen dituztelako. Berria - Euskal Herria

Horiek baitira Janet Felden **aliatuak** : gitarra akustikoa eta ahots berezia. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aeben aliatu (3); **aliatu bat** (7); **aliatu berriak** (4); **aliatu berriak izango** (3); **aliatu eta** (8); **aliatu fidela** (3); **aliatu izan** (6); **aliatu nagusi** (4); **aliatu nagusia** (6); **aliatua da** (4); **aliatua den** (4); **aliatua izan** (3); **aliatua zen** (4); **aliatuak diren** (3); **aliatuek ez** (3); **aliatuen alde** (3); **aliatuen aldeko** (3); **aliatuen artean** (5); **aliatuen arteko** (3); **bere aliatua** (4); **bere aliatuen** (6); **beren aliatu** (4); **beren aliatuek** (5); **edo aliatu** (4); **edo aliatu berriak** (3); **eta aliatu** (8); **eta aliatuak** (6); **eta aliatuei** (5); **eta aliatuen** (7); **eta beren aliatuek** (5); **eta haien aliatuek** (3); **eta haren aliatuen** (6); **eta hauen aliatu** (5); **gure aliatu** (3); **haien aliatuek** (3); **haren aliatu** (4); **haren aliatuen** (7); **hauen aliatu** (6); **israelen aliatu** (3); **washingtonen aliatu** (3)

---

aliazeo *iz* baratxuriarena, baratxuriari dagokiona.

Gramo bat azukre pisatu nuen, platinozko arragoan (gure begiko ninia zen huraxe) su emateko: laboratorioko aire kutsatuan azukre errearen usain etxetiar eta haurtzarokoa

zabaldu zen, baina bat-batean, garra zurbildu, eta oso bestelako usain bat aditu zen, metalikoa, **aliazeoa**, ez-organikoa, ia-ia kontraorganikoa: ai kimikari batek sudurrik ez balu. Juan Garzia

---

alibi *iz* salatua izan denak aurkezten duen agiria, delitua egin zen tokian eta orduan bera beste nonbaiten zegoela frogatzeko. ik **koartada**.

Amak bere testigantza gehitu zien nik jarritako **alibiei**: [...]. Anjel Lertxundi

Kontua duk hilketaren susmagarri bakarra nintzela, ez neukala Greta hil zuten momentuan non egon nintekeen argi zezakeen **alibirik**. Anjel Lertxundi

Gero **alibi** luze bat aletu zuen, hura hamaika bider entzuna ez banu bezala. Harkaitz Cano

Ni eta Greta opor-etxe baten bila ibiltzeak adierazten-edo zuen harremanen egonkortasuna ere ez zitzaidaan **alibirik** onena suertatu: lekuko batek zer esango, eta egun batzuk lehenago Gretak eta nik eztabaida sutsuan jardun genuela Piazza della Scala ondoko kafe-etxe batean. Anjel Lertxundi

Halatan, **alibi** egoki-egokia izango nuen egun hartan Tenshi jaunaren bulegoan egingo nituen orduetarako. Joxan Elosegi

---

alien *iz* beste planeta bateko izaki biziduna. ik **alienigena**; **estralurtar**.

Hasieran enigmatikoa den gutasun hori, gizatalde hori zer ote den pixkanaka doa argitzen irakurlearen begien aurrean: ez dira **alienak** edo androideak ugaltzen ari direnak, ezpada artea lagun eta bide bestelako bizitza eredua besarkatu duten gizon-emakumeak. Berria - Kultura

Alien-en itxura? Harkaitz Cano

---

alienagarri *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi) izond* alienatzen duena. ik **alienatzaile**.

Txatxuak omen dira horrelako filmak, **alienagarriak**. ETC-literatura, saiakera

Ez da atzo goizekoa, beraz, hizkuntza arrotzerako joera **alienagarri** hori euskal nazionalismoa non jaio zen dakienarentzat. ETC-literatura, saiakera

Irabazi-asmo hutsak gidatutako korporazioen diru-goseak errundako erabili eta botatzeko kultura batean, ingurua geroz eta hondatuago dago, geroz eta **alienagarriagoa** da, esanahiz eta helburu bateratzailez geroz eta hutsagoa. ETC-literatura, saiakera

Ni kanpotik ari naiz gogoeta egiten, baina nahiko nuke sistemaren barruan dagoenaren hitzekin bat egitea, diagnostikoa partekatzea, irteera estrategiko amankomun bat bilatzea egoerari, jarraipen instituzional **alienagarri** bati ateak itxiko lizkiokeena. ETC-literatura, saiakera

7. atalean azalduko dudan bezala, amatasun subrogatu esaten zaion horren kontratuaren oinarria da gizonen esperma **alienagarria** dela nahiko literalki, eta, beraz, norberaren baitako beste jabetza batzuez bestelakoa dela. ETC-literatura, saiakera

Horra hor, adibidez, nola bihurtu duen erditzearen industrializazioak berez zoragarria izan daitekeen gertaera bat esperientzia **alienagarri** eta izugarri. ETC-literatura, saiakera

Txillardegiren hitzetan, "tramankulu autonomikoak" (1997) euskalduntasun galgarri eta **alienagarri** honetara kondenatu gaitu. ETC-literatura, saiakera

Ezatseginak edo **alienagarriak** diren lan ugari badira; baldintza eskasetan egiten diren lan ugari. ETC-prentsa

Zirraragarria da soinua, baina bikoizten ari diren irudia ezin dugunez ikusi, distantzia **alienagarria** sortzen da entzumenak eta ikusmenak sentiarazten digutenaren artean. ETC-prentsa

Hain da errepikakorra moldea, hain da **alienagarria**, akats fisikoa izan behar duela. ETC-prentsa

Euskal Herriko Unibertsitatean, Estatu Batuetako eredu **alienagarria** kopiatu eta beraien artean zerikusi edo loturarik ez duten hainbat gairi buruzko lan analitiko hutsak (biziki espezializatuak), guztiz sakonak, egiten ahalegintzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hitzgabetuaren kultura **alienagarri** honek, sustrai luzeak ditu lehenean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondorioz, lan egiteko modu **alienagarri** honek arazo fisikoetara eta erotasunera darama pertsonaia. ETC-entziklopedia

---

alienante *iz* alienatzen duena.

O Evangelho segundo Jesus Cristo (1991) liburuak Saramagok erlijioarekin, eta batez ere erlijioaren erabilera lo-eragingarri eta **alienantearekin** duen kezka biziari buruz jarduteko balio izan zuen. Jon Alonso

Bizimodu oso **alienantea**, tontotzailea, kontsumista sortzen du. Berria - Euskal Herria

Kontsigna eta panfleto merkeetara jo zuen jendeak, jarrera alienatu eta **alienantea** zegoen, eta epe laburrera begiratzen zen. Berria - Kultura

---

alienatu, aliena(tu), alienatzen **1** du *ad* pertsona edo talde baten nortasuna kanpoko faktoreek edo eragileek mugatu edo baldintzatzea.

Egun hartan psikologikoki bortxatua izana nintzen, eta **alienatua**. Piarres Aintziart

Hain nintzen orduan idealismoek **alienatua** non gogoeta komun horien ahalge bainintzen, zorroztasun moralari uko egiten banion bezala. Piarres Aintziart

Beste batzuetan barbaroak izaten dira, zibilizazio batetik, zeinetarantz grabitatzen baitute beraiek, moralki **alienatuak**: beste era batera esanda, kanpo-proletalgo bat. Iñaki Mendiguren

Merkatu-ekonomian, gizakia ez du soilik lanak ustiatzen eta **alienatzen**, produktoreen eta saltzaileen aldetik ere, nolabaiteko merkataritza-ustiaketa jasotzen baitu, eta ondorioz, alienazioa. Iñaki Heras

Guztiz **alienatutako** burges txikiak baino ez daude, Berlusconiri eta botere politiko mafiosoari onespena ematen diotenak. Berria - Kultura

2 (era burutua izenondo gisa)

Kontsumo **alienatu** eta konpultsiboa eritasun baten sintoma da, zibilizazio baten eritasunaren sintoma. Iñaki Heras

Kontsigna eta panfleto merkeetara jo zuen jendeak, jarrera **alienatu** eta alienantea zegoen, eta epe laburrera begiratzen zen. Berria - Kultura

Horixe zen gure arrazoibidea, eta, une hartan iritzi **alienatua** eta okerra izan arren, oraingo perspektiba historikoarekin, langabezia eta miseria sortu eta gero, ezin esan arrazoia falta zitzaigunik. Xabier Mendiguren Elizegi

Horren ondorioz, Japoniak ez zuen pairatu ez subiranotasun **alienatu** baten traumatismoa, ez Mendebaldeko produktuen oldeak bertako industria arpilatzea, ez europarren sarrera basatiak demografia hankazgoratzea. Koro Navarro

Nola gizaki moderno **alienatuak** bere burura bidea aurki diezazukeen naturan, Pasaia inguruko mendietan behinik behin. Koldo Izagirre

Iduri du **alienatuak** direla, bere baitarik ezin deus asmatu ahal izanez eta ustez zenbait bakarrek, apez edo edozein buruzagik, badakitela zer pentsa eta zer egin. Piarres Aintziart

Trena da iraultza industrialak ekarri zuen bizitza-estilo **alienatuari** plazerezko etekinen bat ateratzeko aukera bakarrenetakoa. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alienatu eta** (4)

---

alienatzaile 1 *izond* alienatzen duena.

-Aspaldi esan nizuen nire printzipioek eragozten didatela egunero lan **alienatzailean** jardutea. Jon Arretxe

Molinarenak ez zuen esperientzia pertsonalaren usainik, bere borondate onenarekin kantatuko zuen akaso baina meatzari zapalduak kontentu edukitzeko egina zirudien abestiak, frankismoko politika **alienatzailearen** barruan. Xabier Mendiguren Elizegi

Inbidiatan habil, ez duk jasaten hi behar **alienatzaile** horretatik lur jota itzuli eta ni pozik ikustea. Urtzi Urrutikoeetxea

2 (izen gisa)

Errepika duzu **alienatzailerik** boteretsuena, eta inperioak, txiki edo handi, atsegin emanez bezala, sartzen dizu belarrizulotik oharkabean. Patziku Perurena

---

alienazio 1 *iz* pertsona edo talde baten nortasuna kanpoko faktoreek edo eragileek mugatzea edo baldintzatzea.

Publizitateak, bere ekintzen bidez, patologiaren mugaraino areagotu du kontsumoa, eta halaber, **alienazioa** eta frustrazioa sortu ditu kontsumitzaileengan. Iñaki Heras

Mundu lasterberrituegi honetako mila logos ergel euskaiñol xuriz janztean, areagotu baizik ez dugu egin euskaldunon **alienazioa**; erdal gorputzari aurikularrak kendu eta euskal soinekoari belarritakoak paratu nahi bagenizkio bezala edo sumatzen da bazter guzietan. Patziku Perurena

Merkatuaren diktadura ezarri da, edukien degradazioa eta audientzien **alienazioa**. Txema Ramirez de la Piscina

Barne-proletalgoaren **alienazioa**, azterlan honen lehenagoko zati batean aurkitu dugunez, zibilizazio baten desintegrazioaren sintomarik nabariena da. Iñaki Mendiguren

Guztiz errealak dira, hala ere, bertan islatzen den egunerokotasunaren hainbat alderdi: adibidez, lanaren **alienazioa**, edo protagonistak gauero telebistaren aurrean biltzea eta hor komentatzea eguneko kontuak eta gorabeherak. Unai Elorriaga

Ezberdintasunaren, laneko **alienazioaren**, komunikabideen manipulazioaren edo injustizien aurka borrokatzeko gakoak eman nahi izan dituela bere bizian zehar, oraingoan, borroken zergatiak eta jatorriak esplikatu nahi ditu. Berria - Kultura

Besterik egitea bere buruari -Guzmudenari- eta barren-barrengo sentikizunei uko egitea zatekeen; berebiziko **alienazioa**, era zientifikoago batez esatearren. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxerako bidean, afektibitatea, sexualitatea, emakumearen zapalketa, familia... beste modu batean bizitzeko aukera **alienaziorik** gabeko bat imajinatzen saiatu ginen etorkizunera begira. Rafa Egiguren

Japonia modernoaren **alienazioari** buruz idatzi zuen. Berria - Kultura

2 ***gurasoen alienazio sindrome*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Horietako baten arabera, **gurasoen alienazio sindromea** deitua oinarri hartuta, hainbat erakundetatik saihesteko deia eginda badago ere, hainbat kasuren sinesgarritasuna bazter uzten da. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alienazioa eta** (3)

---

alienigena 1 *iz/izond* beste planeta batekoa. ik **alien**; **estralurtar**.

Fantasia hutsaren eta komedia eroaren ukituak ditu lurrera etorri den **alienigena** baten istorioa kontatzen duen film horrek. Berria - Kultura

Bestalde, orain badakigu ez gaudela bakarrik, baina izango al da hurrengo aldirik? Apuntatuko al zituzten **alienigena** txoro bi haiek gure planetaren koordenatuak? Geroak erranen. Patxi Iturritegi

Kursaalean aurkeztuko duten filmak bi arraza **alienigena** hauek batuko ditu. Berria - Kultura

Fantasia hutsaren eta komedia eroaren ukituak ditu lurrera etorri den **alienigena** baten istorioa kontatzen duen film horrek. Berria - Kultura

Aski ezaguna da Wellsen *Munduen arteko gerra* (1898) nobelaren prolearen oparotasuna (inbaditzaile **alienigenen** istorio guztien iturburua da). Berria - Kultura

2 irud/hed

Zure zakil **alienigena**. Jasone Osoro

---

alifatiko *(corpusean ez dago; ETCn **128** agerraldi)* **1** *izond* molekulez mintzatuz, katea irekiko egitura duena.

Azetonak, eta beste zenbait zetona **alifatikok**, 280 nm-ko argi ultramorea xurgatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehenen artean ditugu landare-olioak, hidrokarburo kloratuak, aromatikoak eta **alifatikoak** eta ester nahiz eter likidoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erradikal taldeak zenbait egitura eduki dezake, kate **alifatikoa**, eraztun aromatikoa, sulfuro taldea, etab. ETC-zientzia, zuzenbidea

Era berean, 14.5. taulan konposatu aromatikoak dituzten erradikalak daude, non balentzia askea albo kate **alifatikoan** baitago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hidrokarburoetan oinarrituak dauden disolbatzaileak (esaterako bentzenoa, edota eratorri **alifatiko** aromatiko eta kloratuak), oso modu zabalean erabiltzen dira industria mekanikoan, kimikan, oinetakoen industrian, eraikuntzan eta garbiketan, hala nola industriako hainbat prozesutan (koipeztatzea, pintatzea, gantzutzea eta azkenik garbitzea eskatzen dutenak). ETC-prentsa

2 ***hidrokarburo alifatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Hidrokarburo alifatiko aseen oxidazioaren lehen urratsean, oxigeno molekularra erabiltzen da erreakzionatzaile gisa; oxigeno molekularen atomoetako bat oxidatutako hidrokarburoan txertatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gasolio fosilak, aldiz, euren irakite-tenperaturan ondo desberdintzen diren **hidrokarburo alifatiko** eta aromatikoen nahaste konplexuak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hidrokarburo alifatiko eta aromatikoak dira horien substantzia psikoaktiboak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hidrokarburo alifatiko edo kate irekiko taldeak generikoki R bezala irudikatzen dira (alkil erradikalak), aromatikoak edo bentzenoaren eratorriak Ar (aril erradikalak) bezala irudikatzen diren bitartean. ETC-entziklopedia

Metalek eratzen dituzten oxidoak dira egonkorrenak. **Hidrokarburo alifatiko** batzuek ere oso erraz oxidatzen dira, butileno oxidoa, etileno oxidoa eta abar eratuz. ETC-entziklopedia

3 ***konposatu alifatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Fenolek, amina aromatikoek, aldehidoek, eterrek, **konposatu alifatiko** asegabeek eta beste konposatu batzuek oso erraz erreakzionatzen dute atmosferako oxigenoarekin; autooxidazio deritzo prozesu horri. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aligatore 1 *iz* kaimana.

Aligatore, iz. Ameriketako krokodiloa, Kontinente Zaharreko monarkia ahituetako krokodiloari puntu guztietan gailentzen zaiona. Xabier Olarra

Bizkarrean dituen hozkak direla-eta **aligatorea** zaurioa dela esan ohi da. Xabier Olarra

Aligatore Sawrian (--=saurian) Biercek behin baino gehiagotan egindako hitz jokoa. Xabier Olarra

2 ***txinatar aligatore*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Txinatar aligatore ("Alligator sinensis") "Aligatore Alligator" generoko animalia da. Narrastien barruko Alligatoridae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

---

aligot *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* bisiguaren antzeko arrain begi-handia, sukaldaritzan oso aintzat hartua *(Pagellus acarne).*

Lentoia edo **aligota** ("Pagellus acarne") Sparidae Esparidoen familiako arrain hezurduna da, 36 cm inguru luzea. Bisigu arruntaren antzeko arrain begi-handia, sukaldaritzan oso aintzat hartua da. ETC-entziklopedia

---

aliketa *iz pl* altzairuzko kurrika txikiak, beso-okerrak eta mutur-finak, gauza txikiak hartzeko, edo burdin hariak, xafla meheak edo antzekoak okertzeko erabiltzen direnak.

Bazen erreminta-kutxa bat logela ondoko ohe-jantzien armairuan, eta behin uraren giltza itxitakoan, **aliketak** hartu eta askatu egin nuen komun-ontzia zorutik. Oskar Arana

Goiori entzuna nion sare karramarroak txikiak direla eta euren **aliketa** lako besoez sareak ebakitzen dituztela. Joseba Sarrionandia

Keinu bortitz batez askatu zen **aliketak** bailiran sorbaldak tinkatzen zizkioten eskuetarik, eta hitzik erran gabe, sukaldetik lekutu zen, bere senarraren eskariz azken hogeita bost urte haietan bakarrik okupatzen zuen logelan hestera joateko. Elena Touyarou

---

alikuota *(corpusean ez dago; ETCn **181** agerraldi) izond* zuzenbidean, proportzio baten araberakoa dena.

[...] edo leherketa batek eragindako hildakoen gain zuen erantzukizun **alikuota** mentalki ingurukoekin banatzen [...] ETC-literatura, saiakera

Beraz, batuan euskalkiek behar luketen presentzia **alikuotaz** gain, diskutitu liteke ere zuzen maneiatu ote dugun euskararen eta erdaren arteko distantzia linguistikoaren auzia. ETC-literatura, saiakera

Oinordekoa, parte **alikuotaren** legatu-hartzailea, ezkontide alarguna edo legeak onartutako bikote egonkorrean alargun gelditutako kidea ezin dira kontulari-partitzaile izan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oinordetza unibertsala: ondare osoan edo zati **alikuota** batean parte hartzeko deia egiten bada (jaraunspena) ETC-zientzia, zuzenbidea

Elikagai parenteralen nahastearen **alikuota** batzuk hazkuntza-inguru likido batean ereitea izan daiteke aukerako beste metodo onargarri bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jarauntsiko zati **alikuotaren** gaineko gozamendunak legatu hori ordainduko du bere kuotaren arabera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Akzioek sozietate-kapitalaren zati **alikuotak** adierazten dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondo nahastu, iragazi, egin 50 ml-ko **alikuotak** -20ºC-tan gordetzeko denbora luzerako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Biala irabiatu ondoren, metanolaren **alikuota** bat buru-guneko bial batera eraman daiteke, non uraren kopuru zehatz eta jakina duen, bertatik GCra abiatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zergak, oro har, portzentaietan kalkulatzen dira, balore partikular batekiko, oinarri zergagarria, zerga-tasa edo **alikuota** bezala izendatuz honela sailkatzen dira: ETC-entziklopedia

---

alimale *(ETCn **485** agerraldi; orobat **animale** ETCn **103** agerraldi) izond* izugarri handia.

Kontua da euskaraz irakurtzen ez duen euskaldunak ezin duela liburu hau baztertu, gatz eta piperdun gogoeta **alimalea** ("ona filma; liburuaren aldean, hala ere, galdu egiten du") patxadaz botako badu. Markos Zapiain

Zarata **alimaleaz** jausi zen Berlusgoñiren kaskezurraren gainean ozta-ozta jaso ahal izan nuen poltsa. Jon Alonso

Marsellako geltokitik ateratzean, oraino iluna baitzen, hiriko argiei so plantatu nintzen harrizkoak diren bi lehoi **alimale** batzuen ondoan jarririk. Janbattitt Dirassar

Ozta ageri zen bere mando **alimalean**, zela gainean garrangatua ematen zuen, zartailu beldurgarri bat inarrosten zuen besotxo hartan. Koldo Izagirre

Dagatek uhain **alimaleak** itzulikatzen zituen lainoaren itotzeko. Ramuntxo Etxeberri

-Erantzun eta kontseiluzko bost liburu: Mota guztietako gaiez egin galdeei eman ihardespen multzo **alimalea**. Piarres Xarriton

Makur **alimaleak** egoitzan berean! Etxe guzia beharko da berria egin. Herria

Harroka gorrail **alimalea** hor dago: ez da aldatu, ez eta kanbiatu. Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alimale bat** (7); **alimale baten** (7); **alimale hori** (3); **alimale horiek** (5)

---

alimaleko *(ETCn **1.595** agerraldi; orobat **animaleko** ETCn **159** agerrald) izlag* izugarri handia.

Zeren eta hor, zati osoak badira, **alimaleko** zatiak, diruaz, diruaz eta diruaz... Menane Oxandabaratz

Beste hegazkin **alimaleko** bat ere badator, Zanbiako aire armadakoa. Xabier Olarra

Astean behin, portura hurbiltzen ziren bildu zituzten arrainak bi saski **alimalekotan** eramanez eta, gauza harrigarria, berehala saltzen zituzten. Elena Touyarou

Esan gabe esaten ari zen, bata euskal pilotazaleok ezagutzen dugun herri batekoa dela, eta bestea, izenik gabeko herri batekoa, horkoa, **alimaleko** golf zelai, errepide bazterreko magasin handi horretakoa. Iñigo Aranbarri

Gogoan dut nola, Leitzako errege erreginak **alimaleko** alorlana argitaratu berri zuela eta, zoriontzera joan nintzaionean, idazleak, xalo-xalo, "bizi naizen herria ezagutu nahi nian" esan zidan. Patziku Perurena

Hizketan ari zirela, hezlea azaldu zen; Martini oldartzeko asmoa zuen, dudarik gabe, baina ez zuela harrapatuko konturatuta, neskarekin mendekatu zen, eta **alimaleko** matraileko bat eman zion. Koro Navarro

Zein ederra iruditu zaigun, zein **alimalekoa**. Xabier Montoia

Alimaleko buruko mina zeukan eta ez zituen lasaigarriak aurkitzen. Javi Cillero

Alimaleko jakin-mina bizi dugu, beharrak bultzatuta, eta horrek berak ekarri du, berez hain aro aldakorra dugun gure klima hain aberats honetan, argi eta atezu bizi beharra daukagula eguraldiarekiko. Pello Zabala

Alimaleko grina jabetzen zen haietaz, nolabait esan. Joxan Elosegi

"**Alimaleko** arrakasta, jendearen eskariz berriro oholtzan": horrelaxe aurkezten dute Ilunabarra Globe ile-apaindegian ekoizpen berri honetan. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alimaleko arrakasta** (5); **alimaleko batek** (3); **alimaleko burrunba** (3); **alimaleko eliza** (3); **alimaleko eremuak** (5); **alimaleko harri** (3); **alimaleko lana** (3); **alimaleko makurrak** (4); **alimaleko manifestaldia** (3)

---

alimalia ik **animalia**.

---

alimentatu alimenta(tu), alimentatzen da/du *ad* elikatu, jaten eman.

Zuhaitz banintz, zeruko aireaz eta lurreko uraz **alimentatuko** bainintzateke, eta hala eginen lukete zeruak eta lurrak neure baitan bat. Joan Mari Irigoien

Indiar gorriak ehizaz, arrantzaz eta oihanak eskaintzen zizkien fruituez **alimentatzen** ziren, eta noiznahi-den agertzen zitzaizkigun irritsu... beti ere jostetan ariko balira bezala. Joan Mari Irigoien

---

alimentazio *(orobat **alimentazione**) iz* elikatzea, elikadura.

Izan ere, ospitalean **alimentazio** parenterala ematen dizute eta horrek kaloria asko ditu. Berria - Euskal Herria

Gaueko hotza hala eguneko beroa, nola gelen iluna hala hezurmuinetaraino sartzen zèn hezetasuna, nola eltxoak, euliak eta mandeuliak hala zorriak eta tximitxak, nola guardien tratua hala **alimentazionearen** eskasa, nola burdinak hala kateak, loturik eta uzkaldurik nindukatenak...? Joan Mari Irigoien

---

alimentu *iz* janaria, elikagaia, hazkurri.

Emakume esklaboen kasuan ere, ez dira sanotzat hartzen haurdun daudenak, zeren eta beren gorputzean umekia hazten doan neurrian **alimentu** guztia beretzat hartzen baitu jandako guztiaren substantziatik, eta umea heldu ahala, zenbat eta gehiago indartzen joaten den, orduan eta indar gutxiago geratzen da haren ernari dagoen gorputzean.Arrautzak gordinik jateak **alimentu** handiagoa zuela eta, Jexuxen lana zen Amaren ezkutuan baserriko oiloei arrautzak lapurtzea Piori emateko. Santiago Iruretagoiena

Ehun bat indioilar gizen erreak, patata erre eta egosiak pilaka, saltxitxa luze koipetsuak azpiletan, ontziak ilar gurineztatuekin, zilarrezko ontziak saltsa lodi eta **alimentu** handikoarekin. Iñaki Mendiguren

---

alimo ik **animo**.

---

alineatu, alinea(tu), alineatzen du *ad* futbolean, entrenatzaileak hamaikakoan sartu.

Anai Jaxintok ez ninduen gehiagotan **alineatu**, eta gurasoek urte hartan bertan atera ninduten ikastetxetik. Joan Mari Irigoien

---

alineazio *iz* partida batean ekipoa osatzen duten jokalarien multzoa. ik**hamaikako**.

Nik, halakoetan, okerreko erabakia hartu baino lehen, Errealaren **alineazioa** errezitatzen diat, Puertollanon bigarren mailatik lehenera eraman gintuzten jokalariena: Zubiarrain; Gorriti, Martinez, Iguaran; Lasa, Lema; Urresti, Arzak, Arregi, Aranbarri, eta Boronat. Joan Mari Irigoien

-Enekok, nahi duena egin behar izaten du beti, baina futbol-entrenatzailea ni naiz, nik jartzen ditut arauak eta nik egiten ditut **alineazioak** -erantzun zion lasalletarrak aitari. Joan Mari Irigoien

Ez zekien berbarik ere ingelesez gizonak, baina buruz esan dit Bayern Munich futbol-taldearen **alineazio** osoa. Jon Arretxe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **errealaren alineazioa** (8)

---

aliota *(corpusean ez dago; ETCn **119** agerraldi)* **1** *iz* Ipar hemisferioko itsaso hotzetan bizi den itsas hegazti handi murgilaria *(Gavia sp.)*.

Ehun hegazti espezie baino gehiago pasatzen dira Urdaibaitik, bai Afrikatik Europara, bai Europatik Afrikara: mokozabala, lertxun hauskara, arrano arrantzalea, kurlinta, txirria, **aliota**... ETC-prentsa

Aliota "Gavia" generoko hegazti igerilaria da, hankak ahatearen gisara dituena. ETC-entziklopedia

2 *aliota artiko* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Aliota artikoa ("Gavia arctica") Aliota Gaviidae familiako hegaztia da, mendebaldeko Alaskan eta Eurasian bizi dena. ETC-entziklopedia

Baita **aliota artiko** bat ere, egun Euskal Herrian halakorik ez badago ere, garai hartan ugaria baitzen, indusketek frogatu dutenez. ETC-prentsa

3 *aliota handi* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Aliota handia ("Gavia immer") Aliota Gaviidae familiako hegaztia da, iparraldeko Ipar Amerika eta Eurasiako kostaldetan bizi dena. Euskal Herrian negu partean ikusten dugu. ETC-entziklopedia

4 *aliota mokozuri* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Aliota mokozuri ("Gavia adamsii"). ETC-entziklopedia

5 *aliota txiki* *(corpusean ez dago; ETCn **48** agerraldi)*

Aliota txikia ("Gavia stellata") Gaviidae familiako hegaztia da, Ipar Hemisferio osoko kostaldetan bizi dena. ETC-entziklopedia

Uda partean iritsi eta zingiretako intsektuei esker bizirautea lortzen duten hegazti-motek osatzen dute talde ugariena; hala nola, **aliota txikiak**, arrano beltz eta belatz txikia bezalako harrapariak... ETC-entziklopedia

Aliota txikiak, antzara nanoak, belatz handiak, elur-hontzak, eskandinaviako lagopodoak, ipar-belatzak, ipar-kaskabeltzak, Laponiako kaskabeltzak, marikoi isats-luzeak, negu txontak eta Bluethroat papourdinak dira, esaterako, aintzira inguruan aurki daitezkeen hegazti-espezie batzuk. ETC-entziklopedia

---

aliritzi **1** ***aliritzian*** aldez aurreko asmorik gabe.

Txakurrak, **aliritzian**, baldintzarik gabe, adoptatu egin du bera; animaliak bizia emango luke berarengatik, badaki. Oskar Arana

2 *aliritziko* aldez aurreko asmorik gabekoa.

Baina, orobat, ikuspen, amets, uste gabeko lotura, sinplifikazio sarritan haur batenaren modukoak, zunda-botatze **aliritzikoak**, ezker-eskuin, guztiz jakin gabe nora daraman bideak. Juan Garzia

3 *aliritzira* ausaz, menturara.

Aliritzira Marcel Proustena hartu nuen: Denbora galduaren bila-ren lehenengo liburukia. Patxi Iturritegi

Argizagiak han goian, argizagi ezezagunak, espazio zabal mugagabean **aliritzira** jaurtitako argizagi ezezagun haiek, hainbeste amets, hainbeste gogoeta eragiten duten irudi bitxi horiek marrazten. Josu Zabaleta

Baina gero, lanerako bidea beharrean, **aliritzira** hartu zuen norabideari jarraitu zion kafetegi batean gelditu zen arte. Berria - Kultura

Baina gauza zaila da, **aliritzira**, pikako damari zeregin bat ematea. Josu Zabaleta

Aliritzira aukeratu edozein botila? Xabier Mendiguren Elizegi

Bi itzal ikusi ditu buru gainetik pasatzen eta, kulata sabelaren kontra jarrita, tiro egin du, **aliritzira**, airera. Itziar Otegi

-Egiazko pertsona batzuek hala eskaturik, beren izenen ordez inizial batzuk jarri dira, **aliritzira**. Josu Zabaleta

alisio **1** *iz* haize iraunkorra, eskualde tropikaletik ekuatore aldera jotzen duena.

Uda garaian, itsasotik datorren ***alisioa*** haizeak talka egiten du mendiarekin, eta hiru iturritatik isurtzen da ura. Berria - Kultura

Palmondoen azpian, **alisioak** imitatzen zituzten haize-emaileen artean, zorioneko uharte batean geundelakoa ere sinetsiko genuen, zoragarri ari baikinen pasatzen. Joxan Elosegi

Antzinakoak ez ziren itsasbazter haietatik aldentzen monzoiez eta **alisioez** baliatzen zirenean baizik, iparrorratza bezalakoa baitziren haientzat. Iñaki Iñurrieta

Monzoiek alde batetik jotzen dute urtearen zati batean, eta bestetik urtearen beste zatian; eta **alisio** haizeek alde beretik jotzen dute urte osoan. Iñaki Iñurrieta

2 ***alisio haize*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) pl*

Kanoari helduta gelditu ziren kide guztiak, noiz salbatuko zain, baina itsaslaster bortitz batean sartuta eta **alisio haizeak** bultzatuta gero eta hegoalderago zihoan ontzia. ETC-prentsa

Animalia txikienek, hala nola planktonekoek, anfibioek eta otarrainek, ur edo aire korronteak aprobetxatzen dituzte, eta hegaztiek, berriz, **alisio haizeak** eta goranzko aire korronteak. ETC-entziklopedia

El Niño garaian, ordea, presio aldaketen eraginez **alisio haizeak** ahuldu egiten dira. Itsasoaren gainazaleko tenperatura maximoak ekialderantz higitzen dira, sei hilabeteren barruan Hego Amerikako kostara iritsiz. ETC-entziklopedia

---

alistatu, alista(tu), alistatzen da *ad* armadan izena eman.

Mario Salegi donostiarra berriz, ANVko bolondresa izan zen gerra zibilean, eta nazionalitate amerikarra lortzeko EEBBtako marinan **alistatu** ondoren, alde egin behar izan zuen New Yorketik macartismoaren urteetan. Harkaitz Cano

Beno, goazemak 39-40 urtera berriro: faxismoaren kontra borrokan jarraitzeko aukera zutela alegia, eta legioan **alistatzeko**. Jokin Urain

Lehenengo kasua, zabala eta nabarmena, herritarrak borondatez eta masiboki **alistatu** direna, Lehen Mundu Gerran izan da, Ingalaterran, asteburu bateko kontua izango zelakoan; horrexek aldatu zuen armadarenganako jarrera. Markos Zapiain

---

aliterazio *iz* figura erretorikoa, fonemen errepikatze adierazkorrean datzana.

Jarraian doazen hitzetan hots bat edo batzuk errepikatzean datza **aliterazioa**. Gogoan dut Frantzian erretorikari buruzko esku-liburuetan **aliterazioa** zer den erakusteko erabiltzen zen adibidea "Pour qui sont ces serpents qui sifflent sur ma tête" (Racine). Iñaki Arranz

Letra bat edo batzuk hitz segida batean errepikatzen d(ir)enean, elkarren arteko hurbiltasunak hoskidetasuna nabarmenarazten du eta, ondorioz, **aliterazioa** sortzen da. Iñaki Arranz

Aliterazioaren bitartez soinu goxoa eransten zaiela erran komunei. Iñaki Arranz

Gehienetan, ordea, **aliterazio** kontu hauek ez dute mugapenik hitzen zati zehatzetan, eta nahasian agertzen dira hala hasieran nola bukaeran edo erdi aldean. Iñaki Arranz

Aliterazio polisilabiko eufonikoa. Xabier Olarra

Antzez baliatu haiz errimaz, **aliterazioaz**, asonantziaz, jakinduria ederreko erretorikaren artifizioez, neurrien aldikatze zuhurraz. Juan Garzia

---

alitosi ik **halitosi**.

---

alix *izond* “alu” irain hitzaren leungarria. ik **alu 3**.

Alu: **alix** (a), aluita. Iñaki Arranz

---

alixa *iz* arrain mota bat.

Horregatik, urtero saskitxoa bete **alixa** izeneko arrain txiki bidaltzen zien monjeei, apaltasun eta pobretasunaren seinaletzat, honela anaiek berena zen tokirik izan ez zezaten, eta inoren mende egongo ez zen lekuan bizi ez zitezen, eta anaiek ezer nolabait saltzeko edo besterenganatzeko ahalmenik izan ez zezaten. Askoren artean

---

aljebra *(orobat **algebra** g.er.)* **1** *iz* matematikaren adarra, eragiketak eta erlazio aritmetikoak sinboloen bidez gauzatzen dituena.

Zenbaki oso eta arrunten zientzia da aritmetika: 1, 2, 3... **Aljebra**, berriz, ekuazioen zientzia da. Jon Muñoz

Hastapenean, ekuazioak aztertzen zituen **aljebrak**; Khaiamek, ordea, polinomioak ere aztertzeraino zabaldu zuen **aljebraren** eremua. Jon Muñoz

Aljebra, konbinatoria eta trigonometria sortu zituzten arabiar matematikariek. Jon Muñoz

Oinarrizko **aljebraren** mende gorena. Jon Muñoz

Boole-ren **aljebra**. Jon Muñoz

2 ***aljebra abstraktu*** *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi)*

Aljebra abstraktua egitura algebraikoak, eraztunak eta taldeak esaterako, ikertzen dituen matematikaren arloa da. ETC-entziklopedia

Aljebra abstraktuan Hermann Grassmann-ek bektore-espazioaren lehen bertsioa egin zuen eta George Boolek bakarrik 0 eta 1 zenbakiak erabiltzen duen aljebra ikustatu zuen. ETC-entziklopedia

Nire esparrua **aljebra abstraktuarena** da, eta Noether da arlo horretan zientzialaririk garrantzitsuena. ETC-prentsa

Aritmetika dator lehenik; gero, aljebra; gero, kalkulua; gero, ekuazio diferentzialak, **aljebra abstraktua**, analisi konplexua, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, multzo terminoa lehen hezkuntzako hasierako mailetan ikasten da eta talde terminoa, aldiz, matematikaezagutza askoz ere espezializatuagoa eskatzen duen **aljebra abstraktuaren** alorrean ikasten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 ***aljebra ekuazio*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aljebra ekuazioak, laugarren gradutik gorakoak direnean, aljebra bidez ezin egin daitezkeela frogatu zuen. ETC-entziklopedia

4 ***aljebra homologiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Funtzio analitikoen teorian eta aljebra topologiaren alorrean aritu zen lanean. Haren lana garrantzi handikoa izan da **aljebra homologikorako**. ETC-entziklopedia

5 ***aljebra lineal*** *(corpusean ez dago; ETCn **101** agerraldi)*

Aljebra lineala bektoreak, matrizeak, ekuazio linealen sistemak eta espazio bektorialak bezalako kontzeptuak aztertzen dituen matematikaren adar bat da. ETC-entziklopedia

Adibidez, jolasa hartuko duen mundua definitzeko, **aljebra lineala** eta geometria erabiltzen dira, bektoreak eta matrizeak baliatuta. ETC-prentsa

Unibertsitatean matematikako lizentziarako ikasketak egiten dituzten ikasleek ekuazio diferentzialak, kalkulu aurreratua, aljebra abstraktua, **aljebra lineala**, analisi erreala eta konplexua, eta abar, ikasten dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hastear duzun ikastaroa, ikasleentzat, **aljebra lineala** lantzen duten bigarren aldia izango da, segur aski. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *aljebra multilineal* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Berez, aljebra, gutxi gorabehera, atal hauen bilkura da: 08-Sistema aljebraiko orokorrak, 12-Gorputz teoria eta polinomioak, 13-Aljebra trukakorrak, 15-Aljebra lineal eta **Aljebra multilineala** eta matrize-teoria... ETC-entziklopedia

7 *aljebra trukakor* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Sarritan esanahi biak har ditzake kalifikatzaile bererako, "Aljebra trukakorra eraztun trukakorrak aztertzeko erabilitako aljebraren atala da, hauek **aljebra trukakorrak** zenbaki arrunten gainean direla" esaldian legez. ETC-entziklopedia

8 *Booleren aljebra* *(corpusean ez dago; ETCn 59 agerraldi)*

Booleren aljebra Elektronika Digital, Informatika, eta Matematika alorretan eragiketa logikoak adierazteko erabiltzen den egitura aljebraiko bat da. ETC-entziklopedia

Booleren aljebraren egitura matematikoa, eta horren ezaugarriak eta oinarrizko teoremak aurkezten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ate logikoa sarrera logiko bat edo gehiagorekin irteera logiko bat inplementatzen duen zirkuitua da. Normalean, **Booleren aljebran** oinarrituta daude. ETC-entziklopedia

Bi egoera hauek **Booleren aljebraren** "gezurra" ("0") eta "egia" ("1") balioak adierazten dituzte. ETC-entziklopedia

Bere izeneko ekarpen nagusia: **Booleren aljebra**. ETC-entziklopedia

Karnaughen mapa **Booleren aljebra** edo aljebra boolearraren funtzioak sinplifikatzeko erabiltzen den diagrama bat da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aljebra ez** (4); **eta aljebraren** (3)

---

aljebraiko 1 *izond* aljebrarena, aljebrari dagokiona.

Urrunago ere joan gaitezke: n. mailako ekuazio bat edo errefrakzio-legearen formula **algebraikoak** enuntziatutzat jo daitezke: [...]. Xabier Arregi

Ideiok hain modu desberdinean etortzen dira gure adimenera, non batzuetan onartu eta besteetan errefusatu egiten baitira beren osagarri diren hainbat elementu; ideia komun banaka batzuk gordetzen dituzte, kopuru **algebraiko** konplexu askok zatitzaile komun berdina onartzen duten bezala. Juan Martin Elexpuru

Diskurtso arteko multzo hauxe, bere multzo forman, beste diskurtso-mota batzuekin harremanean dago (errepresentazioaren azterketarekin, zeinuen eta "ideologien" teoria orokorrarekin, alde batetik; eta matematikekin, azterketa **algebraikoarekin**, eta mathesis bat ezartzeko ahaleginarekin, bestetik). Xabier Arregi

2 *adierazpen aljebraiko* *(corpusean ez dago; ETCn 52 agerraldi)*

Kasu berezia da **adierazpen aljebraikoa**, eskuarki polinomioekin erabiltzen dena. **Adierazpen aljebraikoa** zenbakien eta hizkien nahastura da. ETC-entziklopedia

Oinarrizko aljebra, **adierazpen aljebraiko** eta ekuazioen hasierako ikasketa eta behe mailako matematikako ikastaroetan irakasten den aljebraren zatia dena. ETC-entziklopedia

Ez al da pentsatzen ilara bat **adierazpen aljebraiko** batetik eratortzean? ETC-literatura, saiakera

Batzuetan, modu matematikoan adierazi ahal izango da (hala komeni da), hipotesian esku hartzen duten aldagaiak erlazionatzen dituen **adierazpen aljebraiko** baten bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hurrengo kapituluetan ikusiko dugun moduan, **adierazpen aljebraikoak** sinplifikatzearren, aldagaiak lagineko batezbestekorako desbiderapenetan neurtzen ditugu batzuetan (balio zentratuak). ETC-zientzia, zuzenbidea

Demagun pultsua x noranzkoan hedatzen dela u abiaduran; zein da pultsuaren **adierazpen aljebraikoa**? ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrela, Gauss-en legea eremu elektrikoaren bal ioaren **adierazpen aljebraiko** bihurtzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zenbaki-datuotara atzitu daiteke zuzenean irudian bertan, geroxeago kalkuluetan edo **adierazpen aljebraikoetan** erabiltzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

A4 - Plano-sortaren **adierazpen aljebraikoa** ezagutzen dut. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *barietate aljebraiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Albanesek gainazal aljebraikoetako kurbak eta **barietate aljebraiko** baten generoa landu zituen, besteak beste. ETC-entziklopedia

4 *egitura aljebraiko* *(corpusean ez dago; ETCn 43 agerraldi)*

Egitura aljebraikoa honela defini daiteke: multzo bat, bertako elementuekiko hainbat axioma betetzen duen eragiketa batekin batera. ETC-entziklopedia

Eta Bourbakik ikertu zuenaren inguruan, **egitura aljebraiko** edo egitura topologikoak, ongi, haiek gure arazoarentzat garrantzizkoak badira, ikus dezagun nola. ETC-literatura, saiakera

Testuliburuetan **egitura aljebraikoak** lantzen dira, baina, haiei garrantzia ematen bazaie ere, ezin esan liburuok ikuskera estrukturalista dutenik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edukiak: lehentasuna, **egitura aljebraikoak** eta multzoen teoria. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egitura aljebraiko mota, taldea dena eta trukakortasun printzipioa betetzen dena... ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *ekuazio aljebraiko*

Multzoetan gertatzen dena atzemateko, multzoak **ekuazio aljebraikotzat** hartuko lituzkeen fonologia bat finkatu behar da. Isabel Arrigain

6 *geometria aljebraiko* *(corpusean ez dago; ETCn 33 agerraldi)*

Geometria aljebraikoa matematikaren adar bat da, eta bere izenak adierazten duen bezala, aljebra abstraktua eta bereziki aljebra trukakorra, geometriarekin konbinatzen du. ETC-entziklopedia

Uztailaren 21a - Galina Tiurina, errusiar matematikaria, **geometria aljebraikoan** espezialista (j. 1938). ETC-entziklopedia

Alexander Grothendieck matematikaria izan zen, **geometria aljebraiko** modernoa sortzeko lanetan aitzindari. ETC-entziklopedia

Beste lehen mailako atal batzuk ere, hein batean behintzat, aljebraren barrukoak legez hartu ahal dira, hala nola Zenbaki-teoria (gehien bat Zenbaki-teoria aljebraikoagatik) eta **Geometria aljebraikoa**. ETC-entziklopedia

7 *notazio aljebraiko* *(corpusean ez dago; ETCn 8 agerraldi)*

Notazio aljebraikoa xake-partida bateko mugimenduak adierazteko idazkera-sistema da. ETC-entziklopedia

Metrika bazter utzi zuten eta loturak **notazio aljebraikoen** bidez egiteko joerari segitu zioten. ETC-prentsa

Esate baterako, biderketaren sinboloa ez da esplizituki erabiltzen **notazio aljebraikoan**. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 *sistema aljebraiko konputazional* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Sistema aljebraiko konputazionala edo aljebra konputazionalaren sistema SAK (CAS, ingelesetik "computer algebra system") ordenagailu-programa edo kalkulagailu aurreratu bat da, sinbolo-kalkulua errazten duena. ETC-entziklopedia

9 *topologia aljebraiko* *(corpusean ez dago; ETCn 7 agerraldi)*

Ikasgela handiegia zen, **topologia aljebraikoa** zeritzan bere ikasgaian izen emanda zeuden laugarren urteko hamabi ikasleentzat. ETC-literatura, saiakera

Lehenengoa analisi matematikoaren bitartez Riemannen gainazalak aztertu zituen eta bigarrenak **topologia aljebraikoa** garatu zuen. ETC-entziklopedia

Matematikan, topologian erabiltzen diren multzo-teoriaren definizio eta eraikuntza nagusiekin lan egiten duen topologiaren adarra da. Topologiaren beste adar gehienen oinarria da, haien artean topologia diferentziala, topologia geometrikoa eta **topologia aljebraikoa**. ETC-entziklopedia

10 *zenbaki aljebraiko* *(corpusean ez dago; ETCn 14 agerraldi)*

BG han egon balitz oraindik, hauxe aldarrikatzen entzungo zioten: "Entzun, entzun, hau definizio bat da: **zenbaki aljebraiko** esaten zaio ekuazio aljebraiko baten ebazpen den zenbakiari". ETC-zientzia, zuzenbidea

Zenbaki aljebraikoa edozein zenbaki erreal edo konplexu da, ondorengo ekuazio polinomikoaren ebazpena dena: ETC-entziklopedia

11 *zenbaki aljebraikoen teoria* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Zenbaki-teoriaren banaketa zenbaki-teoria modernoko azpiatal nagusietan, hala nola zenbaki analitikoen teoria eta **zenbaki aljebraikoen teoria**. ETC-entziklopedia

12 *zenbakien teoria aljebraiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Zenbakien teoria aljebraikoko elkarrekikotasun legeak lantzeagatik ezaguna izan zen. ETC-entziklopedia

---

aljebraikoki *adlag* era aljebraikoan.

Atezaina erreumak jota badago edo elbarria bada, akabo taldea, agur txapelketari, eta Costak laburbildu egiten du, oraingo honetan **algebraikoki**, Atea futbol-taldearentzat zer den, horixe da Produkzioa argitaletxearentzat. Jon Alonso

---

aljebrari *iz* aljebran aditua den pertsona.

Lehenengo **aljebrarientzat**, erraza zen aukera; ekuazio bat ebatz zitekeen edo ezin zitekeen ebatzi: bazuen erro bat edo ez zuen. Jon Muñoz

Omar Khaiam, matematikaria, poeta, **aljebrari** handia. Jon Muñoz

---

aljebrista *iz* aljebraria.

Berak ez zuen naquis izateko premiarik izan, arabiar **aljebristek** zioten bezala; aski izan zuen puskatua izatearekin. Jon Muñoz

---

aljeriano ik **aljeriar**.

---

aljeriar *(orobat **aljeriano** g.er. eta **algeriar** g.er.)* **1** *izond/izlag* Aljeriakoa, Aljeriari dagokiona.

Bitartekari **aljeriarren** bidez, modu diskretuan, ETAri bi asteko su-eten publikoa eskatu zion Espainiako Gobernuak, harremanak berriro hasteko. Berria - Harian

Azouz Begagek, bere ikaskide **aljeriarren** ezin ulertua gaindituz, eskolan aurrera egin zuen. Pablo Sastre

Proba ezazu tabako **aljeriarra**. Anton Garikano

Souad Massi **aljeriarra** da, amazirtarra, hobeki erraiteko, emaztea eta gaztea. Berria - Kultura

Aurrena, ez duela inondik inora Malika Laid Azzizen jatorria aipatzen, frantsesa dela ulertu behar du irakurleak, ez "**aljeriar** jatorriko frantziarra". Iñigo Aranbarri

Aljeriar jatorrizko Fadilak zapi iluna zeraman buruan. Itxaro Borda

Bere emaztearen sorterriko **aljeriar** oasitik Habibik ekarritako datil freskoen kutxa ireki zuen Maxek. Jon Muñoz

Tony Gatlif jatorri **aljeriarreko** zinemagile frantziarra, berriz, jaialdiko zuzendaririk onena izendatu zuen epaimahaiak, Exils lanagatik. Berria - Kultura

2 *iz* Aljeriako herritarra.

Mundu guztikoak, bat suediarra, beste bat brasildarra, beste bat thailandiarra, beste bat **aljeriarra**. Joseba Sarrionandia

Ekuardotarren ondotik, marokoarrak, **aljeriarrak**, bulgariarrak eta errumaniarrak etortzen dira gehien. Berria - Euskal Herria

Jende onak baitira **aljeriarrak**, eta, bizi diren baino poxi bat hobekiago biziko balira, felagei ez liekete kasurik emanen. Xabier Montoia

Gero eta jende gehiagok aitortzen diote FLNri **aljeriarren** ordezkaritza. Xabier Montoia

Aljeriar haien kontrako Poliziaren razziak etengabeak izan ziren. Paddy Rekalde

N.-eko agintariek galdegin diete Frantzian bizi diren **Aljeriarrei** joan diten Parisen manifestatzera. Herria

Neke zaizu Biarritz, Donibane-Lohizune, Baionako karrikak **aljeriarrez** beterik irudikatzea. Xabier Montoia

Ea ba zer kondatu dizuten kolonien garaiaz, Parisko manifestaldietan hildako **aljeriarrez**, metroko labirintoak ttukuntzen zituztenez, aberatsen etxeetako zerbitzariez. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aljeriar bat** (4); **aljeriar guztien** (3); **aljeriar jatorriko** (3); **eta aljeriarrak** (3)

---

aljertar *izlag/iz* Aljerkoa, Aljerri dagokiona; Aljerko biztanlea.

Horren jakile dügü Piarres Charritton-en Hiztegia, 551. ostoaldean (Munduko Estatu izenak, Hiriburuak eta herritarren izenak): "Aljeriako Herri-Errepublika Demokratikoa, aljeriar, Aljer, **aljertar**". Herria

---

alka **1** *iz* larreoloa, basaoloa; abereak bazkatzeko erabiltzen den belar bat *(Dactilus Hispanica)*.

Xoragarriak dira larrean, gari tartean, **alka** tartean... Patziku Perurena

2 *alka belar* *iz* lastodunen familiako bazka-landarea

Alka belarrik luzenskoenak bildu apropos, eta haiekin lizar zatukak lotzen ere ikusia nago jendea auzoan. Patziku Perurena

---

alkabuzari ik **arkabuzari**.

---

alkahuete *(orobat **alkaueta** eta **alkauete**)* *iz* maitasun edo sexu harremanetan laguntzaile edo estalgile lana egiten duen pertsona.

Tentuz ibili behar izaten zuten dantzariek, **alkahuete** lanak eginez inork bere izenik agintariei eman ez ziezaien. Xabier Etxabe

Eska diezaiela prostitui dezaten, bere salmentatik ateratzen duten diru guztia aginduz; zaintzaileek, edota gizonak aurkitzen lagunduko dieten **alkaueta** izeneko emakume batzuek laster beteko dituzte neska gaztearen gurariak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lanpeturik dabil Maite Agirre bihar 22: 30ean Debako Zubelzu aretoan estreinatuko duen *Puta zahar* ***alkauete*** *Zelestina! edo Kalisto eta Melibearen amodio tragikomikoak* Agerre Teatroaren azken lanarekin. Berria - Kultura

---

alkaide *iz* espetxe baten burua.

-Hala, bada -erran zidan **alkaideak**-, baldin hemendik atera nahi baduzu, hil iduri egin beharko duzu, eta ongi egin beharko duzu gainerat, izan ez dezan nehork ere sospetxarik. Joan Mari Irigoien

Ez didate patiora irteten uzten, apelazioak huts egin duenetik, eta **alkaideak** debekatua digu prentsarekin hitz egitea heriotza zigorra jaso behar dugunoi. Javi Cillero

Larritu nintzen berriro, eta desesperatu ere nintzen, handik aitzina... harik eta handik urtebeterat **alkaidea** hil eta **alkaide** berria etorri zen arte. Joan Mari Irigoien

Oroit gaitezen Erdi Aroan gure zoko hauetako gotorleku, gaztelu edo dorreen buru izaten ziren **"alkaide"** haietaz. Patziku Perurena

---

alkali *iz* kimikan, azidoekin konbinatzen den metal baten hidroxidoa edo oxidoa.

Hylo delakoa, zeina, gauza bitxia, baltsamaturik aurkitzen baita **alkali**-erroen desinentzietan: metilo, butilo, eta abar. Juan Garzia

Hantxe, iluntasunak baino are gehiago, usain bero sarkor batek geldiarazi zuen, animalia bizien ufako batek, zeinaren **alkaliek** azkura ematen baitzioten sudurrean eta eztarrian. Karlos Zabala

---

alkalino 1 *izond* kimikan, alkaliari dagokiona, alkaliaren ezaugarriak dituena.• *irud/hed*

Zirinen zakartasun **alkalinoa** zen nagusi. Karlos Zabala

2 ***fosfatasa alkalino*** *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Koipe-globuluen kanpoaldeko proteinen artean, aipagarria da tratamendu termikoaren egokitasunaren adierazgarri den **fosfatasa alkalino** entzima. ETC-zientzia, zuzenbidea

Odol-analisiko balioak aldatzen ditu: trantsaminasak, **fosfatasa alkalinoa**, bilirrubina, kolesterola... igoarazten ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Diagnostikoa behaketa klinikoa eta erradiologikoaren bidez burutzen da, hala ere, fosfatasa alkalinoaren eta hezurraren **fosfatasa alkalino** espezifikoaren maila altuen bidez broteak klinikoki neurtu daitezke. ETC-entziklopedia

Alde batetik; aminotransferasa, **fosfatasa alkalinoa**, gammaglutaril transferasa, transaminasak, amoniako eta bilirrubina kontzentrazioen igoera. ETC-entziklopedia

Beste bi dominioek zelularen zitosolera eta matrize extrazelularrera ematen dute eta hauek oso hidrofiloak dira. Adibide tipikoa **fosfatasa alkalinoa** da. ETC-entziklopedia

3 ***pila alkalino***

Telefonoa mahaitxo gainean utzi eta zoroa bezala joan nintzen lasterka nire lagun onenaren bila: larruazalaren ukimena duen dardaragailu bat, **pila alkalinoak** dituena, iraun eta iraun eta iraun egiten duten horietakoak. Juan Martin Elexpuru

---

alkaloide *iz* gai organiko nitrogenoduna, hainbat landarek daukatena eta pozoiduna gerta daitekeena.

Catina izeneko botika eman zion, pizgarria den **alkaloidea**. Berria - Kirola

---

alkalosi *(corpusean ez dago; ETCn **50** agerraldi)* 1 *iz* odolaren gehiegizko alkalinotasuna.

Aurkako fenomenoa **alkalosia** da, hots, pH-a orain 7,4 baino handiagoa egingo da, eta odola disoluzio basikoago bihurtuko da. ETC-prentsa

Farmakoak pH fisiologikoan (7,4) jasaten duen ionizazioaren edota azidosian edo **alkalosian** sortzen den pH aldatuaren araberakoa da disolbagarritasun hori. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antiazido ugari daude merkatuan, bikarbonato sodikoa erabili izan da gehien, baina ez da erabili behar hestean xurgatzean **alkalosi** metabolikoa eta konplikazioak (sodioaren ekarpena=hipernatremia) eragiten dituelako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hauek diuretiko arinak diren arren, gehiegizko kontsumoak deshidratazioa, hipotentsioa eta **alkalosi** hipokalemikoa sor ditzake. ETC-entziklopedia

Metabolismo akatsaren arrazoi nagusiak guruin paratiroideen jarduera murritza, D bitaminaren urritasuna eta **alkalosia** izan ohi dira. ETC-entziklopedia

2 ***arnas alkalosi*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Arnas alkalosi akutu desorekatua (adib.: buxadura akutua, opiazeoengatiko intoxikazioa); **Arnas alkalosi** kroniko orekatua (ohiz kanpokoa: estatus asmatiko luzea ote?); **Arnas alkalosi** akutu desorekatua (adib.: buxadura akutua, opiazeoengatiko intoxikazioa); **Arnas alkalosi** kroniko orekatua (ohiz kanpokoa: estatus asmatiko luzea ote?) ETC-zientzia, zuzenbidea

3 ***arnas bidezko alkalosi*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Gizaki batek presioaren jaitsieraren bat jasaten badu altuera handietara igo izanagatik, hainbat mekanismo fisiologiko garatzen ditu kondizio atmosferikoak konpentsatzeko: **arnas bidezko alkalosia**, biriken zabalketa, bihotzaren taupadak azkartzea, etab. ETC-entziklopedia

---

alkandora *(orobat **alkondara** g.er.)* 1 *iz* gerritik gorako jantzia, aurrealdean goitik behera botoiak dituena. ik **atorra**.

Alkandora jantzi zuen; aldamenean zeuzkan beste janzki guztiak ere, lehor eta garbi. Jose Morales

Alkandora aldatu eta kolonia bota nuen, ugari. Ramon Saizarbitoria

Uretan **alkandorak** garbitzen ari ziren hamar edo hamabi soldadu gaztetxorekin topo egin omen zuten. Koro Navarro

Jakak eta **alkandorak** eranzteko esan ziguten, papar bistan joateko medikuarenera. Urtzi Urrutikoetxea

Alkandoraren aurrealdean nickel baten neurriko diamante bat zeukan. Lopez de Arana

Poltsikoak zulatuta zeuzkanez, **alkandoraren** hegal batean lotu zituen nickelak. Lopez de Arana

Jaka urdinez zegoen jantzita, **alkandoraren** lepo zuria haren gainetik aterata. Ramon Saizarbitoria

Alkandoraren mahukak jasota, Baldwin Zuzenbideari buruzko liburu bat irakurtzen ari zen, bere idazmahaian eserita. Lopez de Arana

Alkandoraren eskumuturrak mahuka-bikiz lotuta oso agerian erameten zituelako. Ramon Saizarbitoria

Ispiluaren aurrean **alkandoraren** paparrekoa jantzi, sudurzuloetatik ateratzen zitzaizkion bi iletxo kendu, eta, aitaren egin orduko, txilar koloreko frak izpildun baten barruan sarturik zegoen. Jose Morales

Legezko bost auziak baino ez -esan zion Ellenek begiak ostrak bezalakoak zituen gizon hezurtsu bati, haren **alkandoraren** kolkoari hitz eginez. Lopez de Arana

Bezperan, bero handiegia zegoenez, partida egin ordez belazeetan etzan ziren, **alkandorak** erantzirik, urdintasun epelera begira, izerditan, hizketan, begira. Eider Rodriguez

Roberto jaka erantzi eta **alkandorako** mahukak goratzen hasi zen. Harkaitz Cano

Alkandorako eskumuturretako botoiak lotu. Harkaitz Cano

Gero **alkandorako** poltsikotik zigarroa atera, bolantea eskuz aldatu, su eman eta irratia piztu du. Urtzi Urrutikoeetxea

Eskua jertsepean sartu eta betaurrekoak atera zituen **alkandorako** patrikatik. Anjel Lertxundi

Alkandorako sakelan sartu nituen berehala buzoitik ateratako paperak. Juan Luis Zabala

Txikiteoan ibili dela sumatu dio, **alkandorako** goiko botoia aske eta musua gorri. Urtzi Urrutikoeetxea

-Zer, **alkandorari** botoiak josi al dizkiok? Pako Aristi

Hotzak dar-dar nengoen, **alkandorarik** ez-eta, baina haren bata janzterik pentsatu ere ez, hantxe nekusan arren, ate atzean zintzilik. Joxe Austin Arrieta

Lehen botoia askatu eta iduna lasatu zion **alkandorari** Markoxek. Joxemari Urteaga

Amak ez zuen inolaz ere kanpoan **alkandorarik** zintzilikatu nahi. Harkaitz Cano

Alkandorarik politena hautatu nuen (ustez politena, bederen!), eta jantzi egin nahi nuen. Txillardegi

Errusiarrak garbitasunari eusten dio **alkandoraz** eta oihal latzezko beroki luzez jantzirik dagoen bitartean Jose Morales

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Oihal ederrezko galtzak, larru finezko gerrikoak, zetazko **alkandorak** eta halako janzkiak. Edorta Jimenez

Gehiegikeria batzuk ere egin zituen: sukaldari on bat akuratu zuen, eta Holandako hariz eginiko **alkandora** finak erosi. Jose Morales

Alkandora urdin argi bat zeraman, bakeroa, lore zuriko brodatuekin. Bernardo Atxaga

Emakumeak kimono bat **alkandora** arrosa baten gainean beste jantzirik ez zeukan. Lopez de Arana

Alkandora estanpatu bat zeraman urre eta lila koloreko sagarrak zituena hondo beltzean. Bernardo Atxaga

Alkandora gorriko mutiko batek balalaika jotzen zuen bitartean. Jose Morales

Hirurogeita hamarren bat urteko gizona zen, traje beltz eta **alkandora** zuriz jantzia. Bernardo Atxaga

Alkandora zikinez jantziriko mutiko batzuek eskua luzatu zioten, esaka: "Jauna, limosnatxo bat umezurtz honentzat!". Jose Morales

Alkandora odoldua kendu, eta beste baten bila bideratu nintzen gelara. Ramon Saizarbitoria

Gizonezko gazteek bizarra, txima luzeak eta koadrozko **alkandorak** janzten zituzten garaian. Unai Iturriaga

Bainuan sartu zen, eta minutu batzuk geroago jantzita atera zen handik, galtza bakeroekin eta esmeralda koloreko **alkandora** batekin. Bernardo Atxaga

Denetariko gizonak zeuden zurezko mahai batzuen inguruan eseririk: bizartsuak eta bizargabeak, ahari-larruzko beroki luzez jantzirik batzuk, **alkandora** hutsean beste batzuk, eta artilezko longain zakarra soinean baten bat. Jose Morales

Koadrodun **alkandorako** gizona hurbildu zitzaidan: [...]. Bernardo Atxaga

3 (hitz elkartuetan)

Galdera bat-batean otu zitzaidan, eskuak patriketan eta **alkandora**-iduna gorantz altxatuta hantxe egonean geundela, kabinara igo aurretixe. Joxe Austin Arrieta

4 *alkandora hutsean*

Kapare batek bilau bati erronka egiten zionean, oinez aurkeztu behar zuen, ezkutua eta makila hartuta; eta zaldi gainean, eta kapare baten armez etortzen bazen, kendu egiten zitzaizkion zaldia eta armak; **alkandora hutsean** geratzen zen, eta horrela borrokatu behar zuen bilauaren kontra. Iñaki Iñurrieta

Ordurako, denetariko gizonak zeuden zurezko mahai batzuen inguruan eseririk: bizartsuak eta bizargabeak, ahari-larruzko beroki luzez jantzirik batzuk, **alkandora hutsean** beste batzuk, eta artilezko longain zakarra soinean baten bat. Jose Morales

"Ukrainan bero egiten du garai honetan, eta **alkandora hutsean** joan ginen sua itzaltzera», esan du Viktor Birkun 56 urteko suhiltzaileak. Berria - Harian

Zalgurdia hegan joan zen kale ilunetan barrena, eta On Camillok sukalde handian aurkitu zituen Filotti etxeko guztiak, baita umeak ere, **alkandora hutsean** eta txakurrandiak bezalako begi zabalduekin. Koldo Biguri

Aurreneko hirurak, kamarero txaketa beltzekin; Geneviève sukaldari kapelu batekin; Ubanbe **alkandora hutsean** eta kopetilun, eskuineko begia pittin bat handituta duela. Bernardo Atxaga

Atea mantso-mantso zabaldu zen, eta han agertu zen Annaren aita; ez zegoen apain eta dotore jantzita, ezta irribarretsu ere, beti agertu ohi zitzaigunez, baizik eta galtza-uhalak agerian eta **alkandora hutsean**, bizarra egin gabe eta tximak harro-harro zituela. Mirentxu Larrañaga

Liuba erdi biluzia ia lurrera jaurtiz, oldarka sartu ziren gela txikian, botaz, longainez eta fusilez bete zuten, eta hauxe ikusi zuten: gizon bat ohean eserita, **alkandora hutsean**, oin biluzi iletsuak lurrean, eserita eta isilik. Jose Morales

Marcel Martinek, berriz, **alkandora hutsean** kantatu ohi zuen, alkandora eta galtza beltzez jantzita, eta horrelaxe ageri da argazki horretan bertan ere. Ramon Saizarbitoria

Egunsentian, Damasko hiriko ateak zabaltzean, jendea sartu-irtenean hasi zen eta **alkandora hutsean** zegoen mutil ederrari erreparatu zioten. Patxi Zubizarreta

5 *alkandora hutsik*

Alkandora-hutsik zetorren hala ere, ez zekarren hotz handirik Justo Badiolak. Joxemari Urteaga

6 *atorra/alkandora hertsagarri*

Lublin-a eraman zuten eta atorra **hertsagarri** bat ezarri zioten. Koro Navarro

Atorra **hertsagarriaz** jantzirik eta oheari lotuta zegoen arren, erizainari beldurra ematen baitzion berarekin bakarrik gelditzeak. Jose Morales

Europako langile-klaseari erregimen totalitario baten alkandora **hertsagarria** eskaintzea. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alkandora arrosa (6); **alkandora bat** (17); **alkandora besoak** (4); **alkandora besoak jaso** (4); **alkandora bustia** (3); **alkandora edo** (3); **alkandora erantzi** (3); **alkandora eta** (34); **alkandora eta galtza** (5); **alkandora eta prakak** (3); **alkandora ez** (4); **alkandora garbia** (4); **alkandora garbiak** (3); **alkandora gorri** (3); **alkandora gorria** (3); **alkandora hura** (3); **alkandora hutsean** (9); **alkandora iduna** (3); **alkandora jantzi** (5); **alkandora kendu** (5); **alkandora mahuka** (4); **alkandora urdin** (6); **alkandora urratu** (4); **alkandora zahar** (3); **alkandora zikin** (3); **alkandora zuri** (14); **alkandora zuri bat** (3); **alkandora zuria** (24); **alkandora zuria eta** (5); **alkandora zuriz** (8); **alkandorak eta** (8); **alkandorako botoiak** (3); **alkandorako poltsikotik** (3); **alkandorako sakelatik** (3); **alkandoraren azpian** (4); **alkandoraren besoak** (3); **alkandoraren botoiak** (8); **alkandoraren botoiak askatu** (4); **alkandoraren goiko** (3); **alkandoraren lepo** (5); **alkandoraren lepo zuria** (3); **alkandoraren lepoa** (5); **alkandoraren mahuka** (4); **alkandoraren mahukak** (6); **alkandoraren mahukak jasota** (3); **alkandoraren paparrekoa** (3); **alkandorarik ez** (4); **alkandorarik gabe** (4); **alkandoratik heldu** (3); **alkandoraz eta** (5); **amak alkandora** (3); **bat alkandora** (4); **bat eta alkandora** (3); **bere alkandora** (11); **bere alkandoraren** (4); **bi alkandora** (4); **du alkandora** (3); **duen alkandora** (3); **ere alkandora** (3); **eta alkandora** (72); **eta alkandora hutsean** (3); **eta alkandora zuria** (3); **eta alkandora zuriz** (4); **eta alkandorak** (4); **eta alkandoraren** (12); **galtzak eta alkandora** (6); **gogorreko alkandora** (3); **hiru alkandora** (3); **koloreko alkandora** (3); **lepo gogorreko alkandora** (3); **nire alkandora** (8); **zen alkandora** (4); **zetazko alkandora** (4); **zizkion alkandoraren** (3); **zuen alkandora** (9); **zuen alkandoraren** (4)

---

alkanfor *(ETCn **51** agerraldi; orobat **kanfor** ETCn **83** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kanfor** agertzen da) iz* kanforra.

Abiatu aurretik, nire salgai batzuk erresuma hartako beste batzuekin trukatu nituen, hala nola aloe egurra, sandaloa, **alkanforra** eta jengibrea. Patxi Zubizarreta

Usain sarkor bat sentitu nuen, **alkanforrarena** gogorarazi zidana. Iban Zaldua

Garai bateko kostunbrismoaren gaitzak deitoratu behar sukartuak eraman ere eraman egin gaitu gure eguneroko bizitzako hainbat pertsonaia natural, esanguratsu eta petoak baztertzera, baserritartasunarekin zer ikusirik duen oro halako **alkanfor** usain arkadiko batez zein tragedia odoltsu tremendista batez blaiturik balego bezala. Anjel Lertxundi

Dagoeneko ez zegoen guztiz seguru bere aita zein laban motarekin asasinatu zuen, ezta haren kirtenaren koloreaz ere: marroia zen, **alkanfor** arbolaren zuraz egina, edo beltza, fibrazkoa? Pablo Sastre

Hotelean dutxa behintzat bazegoen, eta xukadera ere bai, **alkanfor**-usainduna eskualde haietan ohi denez. Joxe Austin Arrieta

---

alkano *(corpusean ez dago; ETCn **473** agerraldi) iz* hidrokarburo asea.

Alkanoak lotura bakunez elkartutako karbono eta hidrogeno atomoz osatutako hidrokarburoak dira. ETC-entziklopedia

Lau karbono atomo dituen **alkano** bat da. ETC-entziklopedia

Bestalde, dihaluroak **alkano** ziklikoak sintetizatzeko erabiltzen dira. ETC-entziklopedia

Karbono tertziarioa duen **alkano** sinpleena da. ETC-entziklopedia

Konposatu aseak (lotura sinplez lotutako **alkanoak**), edo asegabeak lotura bikoitzez (alkenoak) edo hirukoitzez lotutakoak (alkinoak). ETC-entziklopedia

Alkano bat da, adibidez, etanoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azal ezazu nola izendatzen diren kate linealdun **alkano** aziklikoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

4.2. taulan ematen dira, **alkano** desberdinentzat, koefiziente zinetikoen balioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sinpleenak karbono eta hidrogeno atomoz osatuta daude, inolako asegabetasunik gabe, eta hidrokarburo ase edo **alkano** deritze. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

alkantzo ik **alkantzu**.

---

alkantzu *(orobat **alkantzo**) iz* irispidea, helmena.

Kant bera jakitun zen filosofiaren barrutian burutu berri zuen iraultzaren **alkantzuaz**, Kopernikoren iraultzarekin konparatu baitzuen. Berria - Kultura

Entzun izan dut aroa hodeietan irakurtzen usatua dela nekazarien begia, horrek egiten duela nagusi blankura atxemaiten, marinelak ez duela halako ñabarduretarako **alkantzurik**, izarrei beha zuela galdu. Koldo Izagirre

Irakurketak **alkantzu** metafisikoa dauka: irakurtzea ez da irakurriaz handiko zerbaitez mintzo zaizun zerbaitez informatzea, irakurria bera ariaraztea baizik. Xabier Amuriza

Erreparatu zeure baitarako: aberats suertatuko zaizu ilargiarekiko sekretuen **alkantzu** bitxi hori. Pello Zabala

· Mutikotan, auzoko artzai baten atzetik joaten nitzen mendira askotan, haren **alkantzoari** ezin segiz, erdilasterka. Patziku Perurena

Hura aurretik eta ni atzetik, haren **alkantzoari** nere hanka ttikiekin ezin segin erdilasterka. Patziku Perurena

---

alkaptonuria *iz* gernuaren kolore iluna, albuminaren desintegrazio ez osoaren ondoriozkoa.

1902an, Archibald Garrod ingeles medikuak aztergai hartua zuen **alkaptonuria**, gizakiaren kasuan gernua belztea ezaugarri nabarmen duen gaixotasuna. Juan Garzia

---

alkar ik **elkar**.

---

alkargo ik **elkargo**.

---

alkarkide ik **elkarkide**.

---

alkarlan ik **elkarlan**.

---

alkarretarratze ik **elkarretaratze**.

---

alkartasun ik **elkartasun**.

---

alkarte ik **elkarte**.

---

alkartetxe *iz* Eusko Alkartasunaren biltokia.

Eusko Jaurlaritzak abiatutako Estatutu berrirako proposamena izan zuen atzo hizpide nagusi Begoña Errazti EAko presidenteak Muskizen, **alkartetxe** berritua inauguratzeko egin eta hauteskunde kutsua hartu zuen ekitaldian. Berria - Euskal Herria

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EAJrekin koalizioa osatzearen alde agertu dira EAren Donostiako **alkartetxeak**. Berria - Euskal Herria

---

alkartu ik **elkartu**.

---

alkate *(ETCn **42.421** agerraldi)* **1** *iz* udalbatzarraren lehendakaria; udaleko burua. ik **auzapez**; **mera**; **endore**; **udalburu**.

Eserlekuetan, idazleak eta orain Lilleko **alkate** den Pierre Mauroy, aspaldi batean Mitterranden Lehen Ministro izandakoa. Edorta Jimenez

Trajearen azpian arroparik ez zutela erabiltzen esana ziguten, ezdakitnongoak eta badakitnongoak zirela, itzelezko andreak, eta joateko laster, goiz edo berandu kendu egingo zituztelako, **alkatea**, abadea eta enparauak mugitzen ari baitziren putak herritik kentzeko. Joseba Sarrionandia

Lizarra da nagusi eta **alkate**, lizarra jaun eta jabe, lizarra jainkottiki otsailaren 18tik martxoaren 17raino, biak barne. Pello Zabala

Herri euskaldunean, **alkate** ezin erdaldunagoa, ezin erdalzaleagoa. Hasier Etxeberria

Famatua da funtsean Larrasoañako **alkatea**. Piarres Aintziart

Erretorea eta **alkatea** elkar hartuta omen zebiltzan Aian, eta festetan helduan dantzan egitea galarazi egin omen zuten. Xabier Etxabe

Orduko Santiagoko **alkateak**, Anxel Nasal-ek, Nós argitaletxean kaleratu zituen. Paddy Rekalde

- **Alkatea** ere hor kanpoan da! - aldarri egin du norbaitek. Urtzi Urrutikoeetxea

Badakizu, seme, hamazazpi urtez gure herriko **alkate** izan naizela. Jon Muñoz

Zatoz nirekin, jauregi garden honek bere baitan gordeta dauzkan miragarriak erakutsi nahi dizkizut-eta; neroni nauzu bertako **alkate** eta zaindari nagusia. Patxi Ezkiaga

Mehatxuak hasten dira 1792ko otsailetik: Orreagako **alkatea** soldado tropa batekin indarka Alduden sartzen da, 300 ardi ebasten dituzte eta hiru gizon preso eremaiten. Michel Oronoz

Toki egokia diagu hura, gainerat, bertze ola baten eraikitzeko... eta, beraz, hango **alkatearekin**, eta Nafarroa Garaiko gobernariekin mintzatu beharko genikek, baita erregeordearekin ere, beharbada. Joan Mari Irigoien

Bera izan da orain arte herri honetan pilotu, **alkate**, gobernadore, komandante, jaun eta jabe... Joseba Sarrionandia

Vicente herriko tabernaria eta **alkatea** zen, ordena horretan. Jon Maia

Bakeak egiten ditu Asisko gotzain eta "podestà"ren (**alkatearen**) artean Askoren artean

Horregatik etorri dun bisitan gure erregina uda honetan... **alkateak** berak herritik alde egin eta desagertzeko eskatzea besterik ez zitzaionan falta. Xabier Paya

Inoiz Iruñea berreskuratzen badut, hango **alkate** izendatuko haut. Aingeru Epaltza

Onaindiaren atzetik joan zen, ordea, eta harrezkero egunkarietan ikusi izan dut, bere herriko **alkate** aukeratu baitzuten sozialisten zerrendan. Xabier Montoia

Ezagun da Pilar Kareaga, Bilboko **alkate** izandakoari gertatu zitzaiona. Gotzon Garate

Uretako autoan eramanen ote zuten egin zion erregu **alkatearen** idazkariari. Koldo Izagirre

New York-eko Bloomberg **alkateak** gertakizunaren berri izan eta hauxe esan zuen: "Ikusi eta gero jakiten da pistola bat gezurrezkoa denentz. Gotzon Garate

Lazkaoko **alkatearen** etxea erre zutenak ere bertan zeuden. Rafa Egiguren

Mikel da herriko **alkatea**. Pablo Sastre

Hilabete gutxi geroago, Bouvilleko **alkatearen** andrea agerpen baten lekuko izan zen: Santa Zezilia zen, bertako patroia, errieta egitera etorria. Monika Etxebarria

2 *alkate-auzo* *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Mota honetako erakundeen bidez, modu deszentralizatuan administratzen dira auzoak, herrixkak, **alkate-auzoak** (pedanías), baserriak, kontzejuak edo antzeko izenak dituzten biztanlegune bereiziak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundea edo, zentsu zabalago batean **alkate-auzo**, udalerriaren barruan sakabanatuta dauden herriguneek kudeaketa deszentralizatua izan dezaten sortutako toki-erakundea da. ETC-entziklopedia

Huertapelayo Zaorejas udalerriaren **alkate-auzoa** da, Guadalajarako probintziaren hego-ekialdean dago, Tajo ibaiaren goiko harkaitzetan, hain zuzen ere. ETC-entziklopedia

2008an **alkate auzo** bat osatzeko eskaera aztertu zuen Udalak, eta oraindik ere sortu gabe dago. 2013an kontsulta egingo dela iragarri zuen uztailaren 15ean Gipuzkoako Foru Aldundiak. ETC-entziklopedia

Soria, Duero ibaiaren goiko atalean kokatuta dago. Udalerri honen eremua Soria hiriak berak eta hiru **alkate-auzok** osatzen dute: Otoruelos, Pedrajas eta Toledillo. ETC-entziklopedia

Valfermoso de las Monjas Espainiako **alkate auzoa** da, Ledanca udalean, Guadalajarako probintzian, Gaztela-Mantxa erkidegoan. ETC-entziklopedia

3 *alkate dantza* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Abestea baino gehiago dantzatzea atsegin dutenek **alkate dantzan** har dezakete parte. ETC-prentsa

Lakuntzan **alkate dantza** eskainiko diete herriko agintariei bihar arratsaldean. ETC-prentsa

Lakuntzako bestetako bigarren egunean, **alkate dantza** dantzatuko dute kintoek. ETC-prentsa

Ubarretxenaren lehen **Alkate Dantza**. ETC-prentsa

4 *alkate soinu*

Argia dantza taldeak ezpatadantza, **alkate soinua** eta aurresku ikusgarriak egin zituen. Berria - Kultura

Horregatik, ofizialtasunean babestu behar izan zuten maiz, udaletxeetan eta diputazio jauregietan, **alkate soinu** eta prozesioetan. Iñigo Aranbarri

5 *auzo alkate* *(corpusean ez dago; ETCn **436** agerraldi)*

Auzo-alkatea aukeratzeko hauteskundeak aprobetxatuta, abiadura handiko tren (AHT) proiektuari buruzko herri galdeketa egingo dute igandean Bergarako Angiozar auzoan (Gipuzkoa). ETC-prentsa

1992az geroztik **auzo alkatea** eta herri batzarra dituzte, eta Zubietari dagozkion gaiak haiekin aztertu eta hitzartu behar dituzte nola Usurbilgo Udalak, hala Donostiakoak. ETC-prentsa

Opakua, Egileor, Arrizabalaga eta Alanguako (Araba) **auzo alkateak** ere parke eolikoen egitasmo berrien kontra agertu ziren atzo. ETC-prentsa

Auzo alkateak aukeratzeko bozketak zituzten egun haietan Aramaion, eta hori baliatuta antolatu zuten azpiegiturari buruzko inkesta. ETC-prentsa

Angiozarko **auzo alkatea** da Mila Elorza, eta Abiadura Handiko Trenak (AHT) Bergarako auzo txikian ekarriko duen kalteari aurre egiteko ari da parte hartzen AHT Gelditu! Elkarlana taldean. ETC-prentsa

Erlategien zaintzea, eztia ekoiztea eta museora datozenei ongi-etorria egitea aski lan ez baititu, Eltso herri txikiko **auzo-alkate** ere bada, beti dator ondo teknikari bat ur hoditeria berritu beharra zeukan baserrirako. ETC-prentsa

Uribarriko Jone Bergaretxe **auzo-alkateak** kontatu digunez, oso antzinakoa da auzoko ermita edo "goiko eliza", sasoi batean esaten zioten moduan. ETC-prentsa

Ez da bide luzea, baina distantzia emozionala handiagoa dela diote Gilen Garcia Debako alkateak (EH Bildu) eta Arantza Egaña Itziarko **auzo alkateak**. ETC-prentsa

Auzo alkateek ez dute inork sinatu eta udal-langileei dagokionez, batzuk sinatu egin zuten, beste batzuk ez, eta gehienak Forua errespetatzeko baldintzarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Goazen **auzo-alkatearengana**, dokumentua egin dezan. ETC-literatura, saiakera

Nire amaren herrixkan, ordea, gaua zeruan eta sahatsetan, garbitokiko asketan hasten da, plazatik urruti, eta hilerrian eta **auzo-alkatearen** etxean barrena irristatzen da gugana. ETC-literatura, saiakera

Behin, galde egin nion nekazari batek esan zidan **auzo-alkateak** zeukala giltza. ETC-literatura, saiakera

Basoak ustiatzeko eta ekonomia kudeatzeko gaitasuna mantendu zituen, eta **auzo-alkate** bat izendatzeko aukera zeukan. ETC-entziklopedia

Ereñotzuk, lau bokalez eta **auzo-alkate** batez osatutako auzo-batzarra du. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aingo alkate (3); **aingo alkate josu** (3); **aki** (14); **aki** (9); **aki azkunak** (7); **alkate alberto** (8); **alkate alfonso** (25); **alkate alfonso alonso** (3); **alkate alfonso alonsok** (17); **alkate askok** (3); **alkate bat** (6); **alkate batek** (8); **alkate berria** (3); **alkate berriak** (3); **alkate borja** (6); **alkate borja jauregiri** (4); **alkate da** (3); **alkate den** (3); **alkate edo** (6); **alkate egon** (3); **alkate estanis** (3); **alkate estanis osinaldek** (3); **alkate eta** (61); **alkate eta alderdi** (3); **alkate eta zinegotziak** (4); **alkate eta zinegotziei** (3); **alkate gisa** (6); **alkate hautatu** (9); **alkate hautatu zuten** (4); **alkate iñ alkate iñ alkate ignacio** (6); **alkate ignacio gil** (4); **alkate izan** (24); **alkate izan nahi** (3); **alkate izan zen** (7); **alkate izandako** (4); **alkate izandakoa** (3); **alkate izaskun** (3); **alkate izateko** (5); **alkate izendatu** (8); **alkate izendatu zuten** (5); **alkate izendatzen** (3); **alkate jaun** (4); **alkate jauna** (28); **alkate jaunak** (6); **alkate jaunaren** (5); **alkate jaunari** (3); **alkate javier** (6); **alkate jeltzaleak** (5); **alkate jesus** (3); **alkate jose** (17); **alkate jose antonio** (10); **alkate joseba** (3); **alkate joseba egibarrek** (3); **alkate josu** (4); **alkate juan** (7); **alkate juan carlos** (3); **alkate ken** (4); **alkate komunista** (3); **alkate laguna** (3); **alkate maite** (3); **alkate maite etxaniz** (3); **alkate miguel** (8); **alkate miguel buen** (4); **alkate miguel buenek** (3); **alkate mikel** (3); **alkate moduan** (5); **alkate odon** (39); **alkate odon elorza** (7); **alkate odon elorzak** (22); **alkate odon elorzaren** (6); **alkate odon elorzari** (4); **alkate ohi** (27); **alkate ohi eta** (10); **alkate ohia** (30); **alkate ohia eta** (3); **alkate ohiak** (25); **alkate ohiaren** (8); **alkate rafael** (10); **alkate rafael ibarguenek** (3); **alkate rafael ibargueni** (3); **alkate ray** (5); **alkate ray naginek** (3); **alkate sozialista** (3); **alkate sozialistak** (3); **alkate yolanda** (12); **alkate yolanda barcinak** (8); **alkate zela** (7); **alkate zen** (3); **altsasuko alkate** (4); **andoaingo alkate** (8); **arkotxa ondarroako alkate** (3); **arrasateko alkate** (3); **arteako alkate** (3); **aulestiko alkate** (3); **azpeitiko alkate** (5); **barañ barañ barakaldoko alkate** (5); **basauriko alkate** (7); **basauriko alkate rafael** (7); **bastiako alkate** (3); **bastidako alkate** (4); **bastidako alkate ignacio** (3); **bere alkate** (3); **bertako alkate** (5); **bilboko alkate** (16); **bilboko alkate iñ boiseko alkate** (3); **cuerda alkate** (4); **cuerda gasteizko alkate** (8); **da alkate** (5); **debako alkate** (5); **donostiako alkate** (50); **donostiako alkate odon** (38); **eajko alkate** (3); **edo alkate** (4); **egungo alkate** (3); **ehko alkate** (3); **eko alkate** (12); **eko alkate yolanda** (9); **elorza donostiako alkate** (3); **errenteriako alkate** (9); **errenteriako alkate miguel** (8); **erromako alkate** (3); **eta alkate** (19); **eta bilboko alkate** (3); **eta donostiako alkate** (4); **eta gasteizko alkate** (3); **eta lizarrako alkate** (3); **gasteiz gasteizko alkate** (4); **gasteizko alkate** (38); **gasteizko alkate alfonso** (22); **gasteizko alkate ohia** (7); **gasteizko alkate ohiak** (4); **getxoko alkate** (7); **guardiako alkate** (3); **guardiako alkate javier** (3); **gure alkate** (5); **hainbat alkate** (5); **hango alkate** (4); **herriko alkate** (27); **hiriburuko alkate** (7); **hiriko alkate** (15); **hiru alkate** (3); **hondarribiko alkate** (6); **hondarribiko alkate borja** (6); **iruñ iruñ irungo alkate** (7); **irungo alkate jose** (3); **jerusalemgo alkate** (4); **leitzako alkate** (3); **lizarrako alkate** (6); **lizartzako alkate** (6); **lizartzako alkate eta** (3); **lizartzako alkate joseba** (3); **londresko alkate** (3); **londresko alkate ken** (3); **moskuko alkate** (3); **mutrikuko alkate** (4); **mutrikuko alkate estanis** (3); **new orleanseko alkate** (4); **new yorkeko alkate** (3); **ondarroako alkate** (3); **ondarroako alkate ohi** (3); **orduko alkate** (3); **orleanseko alkate** (4); **orleanseko alkate ray** (4); **pasaiako alkate** (10); **pasaiako alkate izaskun** (3); **pasaiako alkate ohia** (3); **sestaoko alkate** (3); **sestaoko alkate alberto** (3); **teherango alkate** (4); **trebiñ trebiñ udaleko alkate** (4); **uko alkate** (3); **uko alkate juan** (3); **yorkeko alkate** (3); **zarauzko alkate** (7); **zarauzko alkate maite** (3); **zen alkate** (4); **zuen alkate** (4); **zuen gasteizko alkate** (3); **zuten alkate** (4)

aingo alkateak (4); **aitortu zuen alkateak** (3); **aki azkuna alkatea** (4); **aki azkuna alkateak** (11); **alfonso alonso alkatea** (4); **alfonso alonso alkateak** (42); **alkatea bera** (8); **alkatea bera ere** (4); **alkatea buru** (7); **alkatea da** (11); **alkatea dela** (3); **alkatea ere** (16); **alkatea eta** (42); **alkatea eta beste** (4); **alkatea eta kultur** (3); **alkatea eta zinegotziak** (4); **alkatea ez** (5); **alkatea izan** (11); **alkatea izan zen** (5); **alkatea naizen** (3); **alkatea zen** (4); **alkateak adierazi** (10); **alkateak adierazi duenez** (3); **alkateak adierazi zuenez** (4); **alkateak atzera** (3); **alkateak atzo** (29); **alkateak atzo adierazi** (7); **alkateak atzo esan** (3); **alkateak atzoko** (3); **alkateak azaldu** (5); **alkateak behin** (3); **alkateak berak** (13); **alkateak berak eman** (4); **alkateak bere** (11); **alkateak beste** (3); **alkateak dekretua** (3); **alkateak dio** (4); **alkateak eaj** (4); **alkateak egin** (7); **alkateak egindako** (5); **alkateak ere** (9); **alkateak ere parte** (3); **alkateak erredakzioa** (5); **alkateak esan** (10); **alkateak esan du** (3); **alkateak espainiako** (4); **alkateak eta** (46); **alkateak eta haren** (3); **alkateak eta jose** (3); **alkateak ez** (23); **alkateak ez du** (8); **alkateak ez zuen** (5); **alkateak hartu** (4); **alkateak hartu zuten** (3); **alkateak hartuko** (3); **alkateak hartutako** (3); **alkateak herenegun** (3); **alkateak iragan** (3); **alkateak jakinarazi** (5); **alkateak jarrera** (3); **alkateak nahi** (3); **alkateak nahi zaituela** (3); **alkateak pse** (4); **alkateak pse ee** (4); **alkateak sexu** (3); **alkateak udal** (3); **alkateak zorrotz** (3); **alonso alkatea** (5); **alonso alkateak** (47); **alonso alkateak eta** (3); **alonso gasteizko alkatea** (3); **alonso gasteizko alkateak** (16); **amorotoko alkateak** (10); **antonio santano alkatea** (3); **arrasateko alkateak** (3); **atzo alkateak** (3); **atzo gasteizko alkateak** (3); **aulestiko alkateak** (3); **azaldu zuen alkateak** (3); **azkuna alkatea** (4); **azkuna alkateak** (14); **azkuna alkateak berak** (3); **azkuna bilboko alkatea** (3); **azkuna bilboko alkateak** (12); **azpeitiko alkateak** (3); **baina alkateak** (9); **baina alkateak ez** (4); **baionako alkateak** (3); **barañ barakaldoko alkatea** (3); **barcina alkateak** (10); **barcina iruñ barcina iruñ basauriko alkatea** (4); **basauriko alkateak** (6); **begles herriko alkateak** (4); **beglesko alkatea** (3); **bertako alkatea** (3); **bilboko**

alkatea (4); bilboko alkateak (19); bollar aulestiko alkateak (3); da alkateak (3); debako alkateak (4); dio alkateak (10); don leonardo alkateak (3); donostiako alkatea (19); donostiako alkateak (57); donostiako alkateak atzo (3); du alkateak (31); easako alkateak (5); egin zuen alkateak (5); eko alkatea (3); eko alkatea (3); eko alkateak (4); eko alkateak (8); elorza alkatea (3); elorza alkateak (25); elorza donostiako alkatea (11); elorza donostiako alkateak (40); errigoitiko alkateak (3); esan du alkateak (5); esan zion alkateak (5); esan zuen alkateak (12); eta alkatea (11); eta alkateak (28); eta alkateak eta (3); eta irungo alkateak (3); frantziskoko alkateak (6); gaineratu zuen alkateak (3); galdegin zion alkateak (3); gasteizko alkatea (6); gasteizko alkateak (31); gernikako alkatea (3); gernikako alkateak (3); getxoko alkatea (5); getxoko alkateak (6); gure alkateak (4); hernaniko alkateak (3); herrietako alkateak (3); herriko alkatea (7); herriko alkateak (16); hiriburuko alkateak (3); hiriko alkatea (4); hiriko alkateak (8); hondarribiko alkatea (5); iñ iñ ibarguen alkateak (3); ibarguen basauriko alkateak (4); iruñ iruñ irungo alkatea (3); irungo alkateak (8); leonardo alkateak (3); lizarrako alkatea (3); madrilgo alkateak (4); odon elorza alkatea (3); odon elorza alkateak (21); peppone alkatea (5); peppone alkateak (4); rafael ibarguen alkateak (3); san frantziskoko alkateak (6); santano alkatea (3); santano irungo alkatea (3); santano irungo alkateak (3); tolosako alkateak (3); udaletako alkateak (3); ugarteburu amorotoko alkateak (5); yolanda barcina alkateak (9); zarraoa getxoko alkatea (3); zarraoa getxoko alkateak (5); zen alkatea (7); zion alkateak (13); ziren alkatea (3); ziren alkatea eta (3); zituen alkateak (3); zuen alkateak (51); zuen amorotoko alkateak (4); zuen atzo alkateak (3); zuen donostiako alkateak (3)

agoizko alkatearen (3); aingo alkatearen (3); aki azkuna alkateari (3); alfonso alonso alkatearen (3); alfonso alonso alkateari (4); alkatearen aginduak (4); alkatearen aginduz (5); alkatearen arabera (8); alkatearen aurka (9); alkatearen aurkako (6); alkatearen bulegoan (4); alkatearen dimisioa (5); alkatearen dimisioa eskatzeko (3); alkatearen erabakiak (3); alkatearen esanetan (11); alkatearen eta (17); alkatearen hitzak (8); alkatearen hitzetan (6); alkatearen izeba (10); alkatearen izeba pinpirina (4); alkatearen jarrera (7); alkatearen kontra (3); alkatearen ustez (12); alkateari bere (3); alkateari eaj (3); alkateari egotzi (3); alkateari eman (3); alkateari eskatu (3); alkateari eta (9); alkateari leporatu (4); alonso alkatearen (8); alonso alkateari (5); alonso gasteizko alkatearen (3); ataungo alkatearen (3); azkuna alkateari (4); azkuna bilboko alkateari (3); azpildarrek alkatearen (3); azpildarrek alkatearen dimisioa (3); ba alkatearen (3); baina alkatearen (4); barañ bilboko alkatearen (3); bilboko alkateari (5); dio alkateari (3); diote alkateari (4); donostiako alkatearen (11); donostiako alkatearen aurka (3); donostiako alkateari (5); eako alkatearen (3); elorza alkateari (4); elorza donostiako alkatearen (9); eskatu zioten alkateari (4); eta alkatearen (9); eta alkateari (5); gasteizko alkatearen (7); gasteizko alkateari (3); getxoko alkatearen (3); herriko alkatearen (4); herriko alkateari (5); hondarribiko alkateari (3); iñ ibarguen alkateari (3); irungo alkateari (4); odon elorza alkateari (3); orduko alkatearen (3); ppko alkatearen (4); rafael ibarguen alkateari (3); zen alkatearen (3); zion alkateari (9); zioten alkateari (8); ziren alkatearen (3); zuen alkatearen (3)

alkateek eta (3); alkateen eta (4); alkateen eta zinegotzien (3); eeko alkateek (3); eta alkateek (3); eta hondarribiko alkateek (5); hainbat alkatek (4); herrietako alkateekin (3); hondarribiko alkateek (5); pse eeko alkateek (3)

---

alkategai *iz* alkatetzarako hautagaia.

Baldwin hori prestatzen ari omen dira hautagai-zerrenda erreformista batu bateko **alkategaia** izateko. Lopez de Arana

Geroztik zinegotzia da eta, 1999an **alkategai** izan zenetik, PPren zinegotzi taldeko bozeramailea. Berria - Euskal Herria

Managuako kasuan, herenegun Fronteak Dionicio Marencoren izena, alderditik, eta Alexis Arguello boxeolari ohia, Konbergentzia Nazionaletik, aurkeztu zituen **alkategai**. Berria - Mundua

Juan Mari Muñagorri **alkategai** izendatu zutenean alderdia uztekotan egon zela aitortu zidan, baina Sebastian Aldasorok konbentzitu omen zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Bosco el Tosco **alkategai** bilbotarra. Berria - Kultura

Ez dut ulertzen, diot, nola gerta daitekeen alderdi abertzale batek **alkategai** ez euskaldunak aurkeztea bere zerrendetan, batez ere eredutzat jotzen diren hirietan. Pello Salaburu

---

alkatego *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* alkatetza.

Eta Donostiako Udaleko Txistulari Taldeak, askotan bezala, **Alkategotik** Protokolo musikala betetzeko agindua jaso zuen. ETC-prentsa

Herri-ohi honen idatzizko lehen aipu ezaguna 1397koa da; orduan Aiztondoko **Alkatego** Nagusiaren kidea zen, Larraul, Asteasu, Urnieta, Astigarraga eta apurka-apurka banatuz joan ziren beste herri batzuekin batera. ETC-entziklopedia

---

alkateorde *iz* alkatearen hurrengoa, alkatetzako zenbait arazoren arduradun den zinegotzia.

Alkatea, maisua edo **alkateordea** zen beti. Josu Zabaleta

Javier Maroto **alkateordeak** AVTren kexuak "ulergarri" zitzaizkiola adierazi zuen, eta kontzertua antolatu zuen auzo elkarteari diru laguntzak kentzeko mehatxua egin zuen. Berria - Kultura

Alkateak eta **alkateordeak** talde politikoek eta gizarte eragileek egindako salaketak eta kritikak arbuiatu zituzten. Berria - Euskal Herria

Lantaroneko **alkateorde** Anjel Santamaria ekimenarekin baikor agertu zen. Berria - Euskal Herria

Eztabaida luzearen ostean, dekretua bertan behera uzteko asmorik ez dagoela argitu zuen Gasteizko **alkateorde** Jose Antonio Pizarrok. Berria - Euskal Herria

PPko **alkateorde** Javier Marotok azaldu zuenez, etorkinak berriro ere erroldatik bidaltzeko espedientea "lehenbailehen" abiatuko dute. Berria - Euskal Herria

Batzordeko lehenengo presidentea Patrick Mareschal izan zen, Naonedeko gaur egungo **alkateorde** eta Loire-Atlantiqueko Kontseilu Nagusiko presidente hautatu berria Haren hiru semeetarik zaharrenari, Ezako Karlosi Errege Jaunak gomendatu zion Piumbino, eta, gainera, Milaneko gazteluaren **alkateorde** ezarri zuen tarte batez eta haren parte on baten zaintzaile. Berria - Mundua

Lan eta Trebakuntza diputatuarekin batera, Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusia, Eugenio Iriondo Azpiegiturako zuzendaria eta Aitziber Irigoras Durangoko **alkateordea** ere izan ziren inaugurazio ekitaldian. Berria - Ekonomia

Azken udal bozetan Swansea (Abertawe) hirian Richard Lewis hautagai eta orain arteko **alkateorde** independentea atera zen garaile. Berria - Mundua

Bertze lau, politikan berriki sartuak, hala nola Caen hiriko alkate anderea, Pariseko **alkateorde** andere bat, Blois hiriko auzapez berria eta UDF-eko zinegotzi bat. Herria

Frodok **alkateorde** kargua onartu zuen, Oinzuri jauna behar bezalako egoeran egon arte. Agustin Otsoa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alkateorde jose antonio (4); alkateordea da (3); angel etxebarria alkateordeak (3); etxebarria alkateordeak (3); gasteizko alkateorde (6); gasteizko alkateorde jose (3); zuen alkateordeak (3)

---

alkateordeko *iz* alkateordea.

Hemengo **alkateordeko** diharduen andereak hitz batzuk esan dizkigu. Edorta Jimenez

---

alkateordetza *iz* alkatordearen egoitza.

Asteartean, hilaren 14an, Pasaian egingo dute foroa, Trintxerpeko **Alkateordetzan**. Berria - Euskal Herria

---

alkaterna *(ETCn **45** agerraldi) iz* bikearen antzeko gai iluna eta likatsua, egurra edo harrikatza destilatuz ateratzen dena. ik **galipot**.

Feitl larru lantegi baten erdiaren jabe zen; sardinzarrak, **alkaterna** eta eltzeak saltzen ziren denda batean inbestitua zuen Peshek dotea, eta nekazariz gainezka egoten zen beti denda. Koro Navarro

Ugazabaren eta morroiaren artean gaindegia konpondu zuten, teilak **alkaternaz** margotu zituzten, irazgaitz egiteko inondik ere, eta harmaila batzuk jarri zituzten. Josu Zabaleta

XIX. mendean erabiltzen ziren **alkaternaz** egindako pigmentu beltzen kasu ikusgarria. Josu Zabaleta

Oso itsusia zegoen kopetan behera zetorkion ileordearekin, larruzko kapa izugarri handia jantzita, eta gogotik garbituagatik ere ezabatzen ez ziren **alkaterna** arrastoak ageri zituela eskuetan. Koro Navarro

---

alkaternaztatu, alkaternazt(tu), alkaternaztatzen du *ad* itsasontziez mintzatuz, oholen junturak alkaternaz itxi.

Almirant D'Estréesek Tortugako irlarat itzuli behar izan baitzuen, gizon eta untzi gehiagoren bila, Alain Coup d'Oil han berean utzirik, Trinidadeko kostako itsas zoko batean, zeina Alain Coup d'Oil-ek gordelekutzat hartu baitzuen, bai bere untziaren hornitzeko eta bai haren **alkaternaztatzeko** ere Joan Mari Irigoien

---

alkatesa *iz* udalbatzarraren lehendakari emakumezkoa.

Iruñean eta Tuteran beren gobernuari eta andere Yolanda Barana Iruñeako **alkatesari**. Herria

ERCren zerrendan aurkezturiko Marie-Claude Gregoire Conte independientea izango da Salses herriko **alkatesa**. Berria - Mundua

Goizuetan ere bai, Untxalo etxea eta Ontxari baserria; aitaren aldeko amona nereak ere, Ontsari zuen bigarren deitura; eta oraingo **alkatesa** bera Mª Pilar Untxalo da izen deituraz. Patziku Perurena

Maribi Agirregomezkorta **alkatesak** zion bezala," gure arteko desadostasunei bizkarra emateko garai aproposa". Herria

Gales osoko emakumerik aberatsena duk, eta **alkatesa** ere izan zuan behin. Koro Navarro

---

alkatetu **1** alkate bihurtu.

2 (era burutua izenondo gisa)

Jerarkia iraultzen delako itxurak egin urtean behin, justu alderantzizko eragina sortzeko: jerarkia ofiziala sendotu zeremonia alai errukarri itxurakoz, gaztetxo **alkatetu** horrek engoitik bere bizi guzian, umetako alkate izate gogoangarri huraxe irrika itsuz bila dezan. Patziku Perurena

---

alkatetza *iz* alkatearen agintaritza edo kargua.

Horrenbertze espero zezakeen, Iruñeko **alkatetza** agindu zion batengandik. Aingeru Epaltza

Aralarrek du **Alkatetza** Zaldibian. Berria - Euskal Herria

Garai hartan, egun Agoitzen agintean den talde berak zuen **alkatetza**, Agoizko independenteek, alegia. Edurne Elizondo

Horrela ulertu zuten jakintsu erromatarrek eta horrela amesten zuen berak **alkatetza**: ireki beharreko bideak, zolatu beharreko kale eta errepideak, hiriko garbiketa orokorra, arloteen polizia-zaintza, eskupekoak ematea egun jakinetan txiro behartsuei, langabezia-laguntzak, [...]. Bego Montorio

"Hildakoekin hobeto moldatzen naiz biziekin baino", desenkusatu zen, harrokeria apurrik gabe, **alkatetza** eskaini ziotenean. Joxerra Garzia

Easaren bidez geuregana baitezakegu Azpil berriro, **alkatetza** geure esku dugun bitartean! Joan Mari Irigoien

Azken udal bozetan Swansea (Abertawe) hirian Richard Lewis hautagai eta orain arteko alkateorde independentea atera zen garaile, baina ezingo du berriz **alkatetza** eskuratu. Berria - Mundua

Joan zen ostiralean ERC Esquerra Republicana de Catalunyako kide bilakatu zen, eta, horren bidez, historian Ipar Katalunian lortu duen lehen **alkatetza** eman dio alderdi nazionalistari. Berria - Mundua

1999ko udan Alfonso Alonso popularrak **alkatetza** lortu zuen. Berria - Ekonomia

Jean-Pierre Raffarin Frantziako lehen ministroak, bestalde, bikotea ezkonduz gero, Memerek **alkatetza** galduko zuela esan zuen. Berria - Gaiak

Alkatetza utzi baino lehen, Pasqual Maragallek abian jarri zuen proiektua, eta gaur egun, Udala bera, Kataluniako Generalitat eta Espainiako Gobernua dira antolatzaileak. Berria - Kultura

Berari ez dagozkion **alkatetza** eta kargu ugari bereganatu ditu horri esker. Berria - Euskal Herria

Egaña, berriz, **Alkatetzan** ariko da hemendik aurrera. Berria - Kultura

UMPko lehendakariak Bordeleko **alkatetzan** eta diputatu karguan geratzeko ahala izango du. Berria - Mundua

PP zegoen Madrilgo Udaleko **Alkatetzan**, eta hirigintza operazio batean Real Madrilen Kirol Hiriko lur sailen kalifikazioa aldatu eta zorra kolpetik kendu zuen. Berria - Kirola

Errepublikako gobernuak horren ondorioz **alkatetzatik** kendua, 1936ko otsaileko hauteskundeen ostean itzuli zen **alkatetzara**. Edorta Jimenez

Giuliani alkateari dagokionez, zortzi urte boterean egon ondoren New Yorkeko **alkatetzara** aurkeztu ezin duenez, NY estatuko senaturako zerrendaburu hautatu zuten errepublikarrek. Harkaitz Cano

Will Oinzuri zaharra inor baino luzeago egon zen giltzapean eta, agian tratu hobea eman bazioten ere, **alkatetzara** itzuli aurretik asko jan beharrean zegoenez, Frodok alkateorde kargua onartu zuen, Oinzuri jauna behar bezalako egoeran egon arte. Agustin Otsoa

Sandinisten gobernuaren aurka 1980ko hamarkadan borrokatu zen Eden Pastora Komandante Zero ezizenez Managuako **alkatetzarako** aurkeztu da Nikaraguan. Berria - Mundua

Horrek esan nahi du ez diotela inongo **alkatetzari** uko egiten, nonahi kokatzen dela ere. Berria - Euskal Herria

PSNk udal hauteskundeen ondoren abertzaleen laguntzarekin lortu zuen bost **alkatetzetako** bat da. Berria - Euskal Herria

Iñaki Azkuna alkateak Andoni Aldekoa **Alkatetzako** zuzendaria bidali zuen Sorgintxulokoekin egin beharreko bilerara, eta hark esan zien udal agintariek egun bi beharko zituztela ezer zehazteko. Berria - Euskal Herria

Beraz, hala edo zelan, **alkatetzako** bulegoa zen Mallonaren Bilboko hura. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alkatetza eta** (3)

---

alkatifa *iz* kalitate oneko alfonbra.

Bere ibilaldi edo itsasaldi haietan, zetak, oihalak, alfonbrak eta **alkatifak** kargatzen ohi zituen Turkian, gero Espainian, Frantzian, Holandan edo Ingalaterran deskargatzeko. Joan Mari Irigoien

Nik nahi dudanarekin ezkondu dadila Marisantxa, eta ikusiko dun nola "Teresa Panza anderea" deituko dinaten, eta nola elizan eserlekuan zetazko **alkatifa** guri ederrak izango ditunan, nahiz eta herriko handizki-andereak muzinka min hartu. Patxi Ezkiaga

Alkatifa: artile edo zetazko oihala, mahaiak edo bankuak estaltzeko. Patxi Ezkiaga

---

alkatxofa **1** *iz* orburua.

Gutarra kontserba ontzi pila ugariaren bistak eragindako bozkarioz: lekak, **alkatxofak**, ilarrak, azenarioak... Denetik dago han. Iñaki Iñurrieta

Tuterako **alkatxofak**, normalean, ez dira Tuterakoak izaten, Murtziakoak baizik, eta potekoak, gainera. Ramon Saizarbitoria

Dalien artean zabaltzen zuten amapolek beren hazia; belar luzea kulunkatzen zen zelaian; **alkatxofa** erraldoiak zutitzen ziren arrosartean. krabelin bat loratu zen azen

artean. Anton Garikano

Jonathanek bat-batean eskegi zuen aparailua ezer erantzun gabe nirea eskuan utziz **alkatxofa** zimurtua bailitzan. Berria - Kultura

Bazekien honelakoren etxean **alkatxofak** aldatu zituztela eta beste halakorenean babarrunak. Koro Navarro

Senez joaten zen, enarek hegora edo **alkatxofek** eguzkitara jotzen duten bezala, Aita Santua San Pedroko basilikan meza ematen, mila artzapezpiku mitradun eta **alkatxofa**-hostozko-kapeladunen aurrean. Anton Garikano

2 *hed/irud* **

Dutxako **alkatxofarekin** jaboia kentzen ari nintzaion, begiak ireki zituenean; zutitu egin zen, hanka bat mailan jarri eta, niri begiratuz, esan zidan. Juan Martin Elexpuru

Mikrofonoa ezpaineratu zuen kemen indarberrituaz; hain kementsu, ezen **alkatxofa** irensteko zorian izan baitzen, Berriro zabaldu ditudanean, titaniozko **alkatxofa** globalaren argi itzalak ikusi ditut gortinen artetik. Karlos Linazasoro

---

alkaueta ik **alkahuete**.

---

alkauete ik **alkahuete**.

---

alkazar *iz*

Gaztelua **alkazar** eder bat zen, hiru harresi-inguru zituena babes. Zabaltzak, almenak eta **alkazarreko** erronda-bideak, denak daude mairu ilun eta bizardunez beterik, zemai-keinuak egiten dituzte, baina isilik daude. Fernando Rey

---

alkazia ik **akazia**.

---

alkeno *(corpusean ez dago; ETCn **660** agerraldi) iz* gutxienez lotura bikoitz bat duten hidrokarburo alifatikoen izen generikoa.

Lotura bikoitza eta hirukoitza dira, hurrenez hurren, **alkeno** eta alkinoen talde funtzionalak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jadanik adierazi da atmosferan **alkeno** ugari daudela, eta haien iturri nagusiak erregai fosilen errekuntza eta landareen emisio biogenikoak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Atal honetan, **alkeno** terminalak soilik aztertuko dira, hau da, lotura bikoitzaren karbono atomo bakarra ordezkaturik dutenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alkeno ziklikoei "zikloalkeno" deritze. ETC-entziklopedia

Butenoa edo Butilenoa **alkeno** bat da, C4H8 formula kimikoa duena. ETC-entziklopedia

Lotura bikoitz bat daukatenei **alkeno** deritze, beren formula C"n"H"2n" izanik (egitura ez-ziklikoak kontuan hartu gabe). ETC-entziklopedia

Lotura anizkoitzak dituzten hidrokarburoekin (**alkeno** eta alkinoak) amaitzeko, kate nagusia lotura anizkoitz gehien dituena izango dela esan behar da. ETC-entziklopedia

---

alki ik **aulki**.

---

alkilatu, alkila(tu), alkilatzen *(ETCn **50** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **alokatu** agertzen da)* du *ad* alokatu, errentan hartu edo utzi.

-Hurrengorako zaldi zuriek eramandako limusina bat **alkilatuko** dut. Iñaki Zabaleta

Gondola bat **alkilatu** genuen. Jon Alonso

Garmendiari ETAren Amaiur komandoarentzat pisu bat **alkilatu** izana leporatzen diote. Berria - Euskal Herria

Senarrak zerbait marmarreatu zuen, ez oso konforme itxuraz, agian herritik gertuko mendian **alkilatutako** postuan botatzen zituen usoak inork ez zituelako jan nahi izaten. Jon Alonso

---

alkiler *iz* alokairua.

Alkilerrak, zertarako daude? Pablo Sastre

Alkilerra ordaindu gabe badaramazu... Pablo Sastre

---

alkimia **1** *iz* zientzia enpirikoa, unibertsoa osatzen zuten elementuak, metalen eraldaketa eta harri filosofala aurkitu nahi zituena besteak beste.

Alkimia ikasten eman nituen nire bizitzako hamaika urte. Xabier Aranburu

Badakitenak **Alkimiaren** hizkera ez zaiola arrazoimenari zuzentzen, bihotzari baizik. Xabier Aranburu

Alkimiaren antzinako ikerketa sorgin-harria egitearekin lotua dago; kondairazko substantzia bat, ahalmen harrigarriak dituena da berau. Iñaki Mendiguren

Zurekin munduan zehar nenbilela jakin nituen **Alkimiaren** sekretuak. Xabier Aranburu

Shelley esaten ari zaigu nekez uler daitekeela bizitza elementu fisiko eta kimiko ezorganikoen multzo soiletik sorturiko ondorio baten modura, eta Golema edo Gizon ikusezina bezalako literatur asmazioen osaketan beti dago zientzia mekanizistaren edo **alkimiaren** kontrako jarrera. Anjel Lertxundi

Alkimiako harri filosofalarekin aberasteko konfiantza askorik ez zuen izango, dirudienez, notario lanetan iruzurraz baliatu baitzen -besteren eskriturak bere faboretan jarriz- legez kanpo dirua eskuratzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Astrologian, antzinako erlijioetan, magian eta **alkimian**. Alberto Ladron Arana

Ez zientzien historia, baizik eta ezagupen inperfektuena, gaizki oinarritutakoena, sekula lortu ez dutenak bizitza tematiko batean barrena zientifikotasunaren forma (**alkimiaren** historia kimikarena baino gehiago, arimadun espirituena edo frenologiaren historia fisiologiarena baino gehiago, gai atomistikoen historia eta ez fisikarena). Xabier Arregi

Esku artera heldu zitzaion herdoil-aurkako baten formula, kromatoetan oinarritua, osagai absurdu bat zeukana: zer eta amonio kloruroa, antzinako **alkimian** Ammonen tenpluko Gatz Amoniakoa zeritzona, zeinak burdina herdoiltzeko joera nabarmenagoa baitzuen noski, hura herdoiltzetik babesteko baino. Juan Garzia

Itsasora begira geratzen zen eta orduan **alkimia** arraro bat obratzen zen bere baitan, herrian zituen lokarrietatik bereiztera bultzatzen zuena. Joseba Sarrionandia

Alkimia-mintzaira zerabilen gizonak. Xabier Aranburu

Alkimia-eskuliburuen hizkera konplexu hark iragartzen zuenetik ezertxo ere ez zen gertatzen ari. Xabier Aranburu

Zaldun izena daramaten guztiak ere ez dira guzti-guztizkoak izaten denak; urre-urrezkoak batzuk eta **alkimia**-urrezkoak besteak. Patxi Ezkiaga

2 irud/hed

Alkimiaren arragoan egiten den aldakuntzarik behinena da beruna urre bihurtzea, hots, zama arintasun, makala bizkor, itzala argitasun. Juan Kruz Igerabide

Gamonedari entzun nion behin esaten plazera ematen duen sufrimendua dela lengoaia poetikoaren **alkimia**. Ana Urkiza

Ibiltzean ez dago pentsamendu edo sendimendu ardurakorik: gorputza bere indar goxoan, burumuina bere lan kementsuan ari dira ari **alkimia** aberats batean gauzak itzulikatzen, sukarraren kaldatik beretik, nork daki, argi zerbait atera dadin. Piarres Aintziart

Musikalki, diskoaren grabazioa **"alkimia** lana" izan dela dio Botanzek. Berria - Kultura

---

alkimiazale *izond/iz* alkimiaren zalea dena.

Edward Talbot Worcesterreko notario-idazkari **alkimiazale** bat zen, *De Lapide Philosophorum* liburua idatzi zuena, edozein metal urre gorri bihurtzen zuen harri filosofal miresgarriari buruz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Garai hartan -XVI. mendearen azken laurdenean eta XVII. mendearen hasieran- Europan alderrai zebiltzan alkimista eta kinkailari guztiek Pragako gazteluan, enperadore **alkimiazalearen** babesean, toki bat edukitzearekin egiten zuten amets. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zera oroitaipatzen du, aitzitik (garai bateko kimikarien apaltasunaren handia!), Zerere planetatxoa, 1801 urte berean aurkitu baitziren gure metala eta argizagi (latinez *astrum*) hori; eta apika **alkimiazaleen** bikotekatze klasikoen omenaldi amultsu-ironiko bat zen hori. Juan Garzia

---

alkimiko *izond* alkimiarena, alkimiari dagokiona.

Entzun, bada, ongi zer esan didan, orduantxe gertatu baita nire konbertsioa: "Nik, ordea, arimarekin egiten dut amets, neskatxa, halako moduan, non gorputzetik arima destilatzea baitut helburu, prozesu kimiko-**alkimiko** baten bidez. Joan Mari Irigoien

---

alkimista *iz* alkimian diharduen pertsona.

Ikasi dut **alkimista** askok bizi izan zutela Norberaren Kondaira eta, azkenik, aurkitu egin zituztela Munduaren Arima, Filosofoen Harria eta Edabea. Xabier Aranburu

Horrela bada, filosofiaren harria topatzear dagoela uste duen **alkimista** bezalaxe sukarrak harturik, inon diren kalkulurik xeheenak hasi zen egiten hipotesi haren probabilitatea aztertzeko. Josu Zabaleta

Bizitza osoa laborategietan metalak arazten eman zuten gizonak ziren **alkimistak**. Xabier Aranburu

Berrehun urtetik gora zeuzkala **alkimistak**, zioten; Filosofoen Harria eta Bizitza Iraunkorraren edabea aurkitu zituela. Xabier Aranburu

Pertsona arraroak ziren **alkimistak**, beren buruan bakarrik pentsatzen zutenak, eta ez zuten inoren laguntzarik nahi izaten. Xabier Aranburu

Alkimistek elementuak transmutatu nahi zituzten. Fernando Morillo

Urteak eta urteak ematen zituzten **alkimistek** laborategietan, metalak arazten zituen suari begira. Xabier Aranburu

Kimikaren jatorria prestueza zen, edo ez garbi-garbia bederen: **alkimisten** gelazuloak, haien ideien eta hizkuntzaren nahasmen gorrotagarria, urrearen alderako haien interes nabarmen aitortua, sortaldeko hitzontzi zein aztien jiteko haien tronpakeriak; fisikaren jatorrian, aldiz, sartaldearen argitasun bipila zegoen, Arkimedes eta Euklides. Juan Garzia

Amorioa baita, hainbat **alkimistaren** erranetan, munduan dagoen harri filosofal bakarra. Joan Mari Irigoien

Halako gau batean, telepatia saio nekagarri baten ostean hizketan ari ginela, zera galdetu nion, ea zergatik zen hain lausoa eta konplexua **alkimisten** hizkera. Xabier Aranburu

Erdi Aroko **alkimistentzat**, zilarrak ilargiarekin zuen ahaidegoa, eta plomu-berunak Saturnorekin. Pello Zabala

Materia hobeki ezagutzeko gai gara, materia aldatzeko gai, materia berriak sortzeko ere, Erdi Aroko **alkimista** zaharren ametsak egia bihurtu bailiran bat-batean. Pello Salaburu

Berpizkunde garaian, Philippus Aureolus Paracelsus (Paratzelso) mediku eta **alkimista** argiak izugarrizko aurrera pausoa eman zion osasunaren zientziari Hipokrates greko zaharren teoriak berpiztu eta moldatu zituenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Horietako batean irakurri zuen aspaldi batean, duela urte asko, **alkimista** arabiar ezagun bat Europan izan zela. Xabier Aranburu

Aipaturiko liburuan, Jung-ek Demokritoren pasarte misteriotsu bat aipatzen du, eta dio filosofo hori dela idazle **alkimistarik** zaharrenetakoa. Juan Kruz Igerabide

Gogor berba egin zuen Yañezek "arazoak negozio bihurtzen dituzten" **alkimista** liberalen kontra. Berria - Gaiak

Gero itzalgaizka itsasoratu zen Lurmuturrerako bidea egiten zuen lehen ontzian: kutxan bere **alkimista**-trepeteria guztia zeukan. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alkimista bat** (3); **zen alkimista** (12); **zuen alkimista** (3)
> **erantzun zion alkimistak** (15); **erantzun zuen alkimistak** (4); **esan zion alkimistak** (7); **esan zuen alkimistak** (16); **eskatu zion alkimistak** (3); **zion alkimistak mutilari** (3)
> **alkimistaren bila** (4)
> **zion mutilak alkimistari** (7)

---

alkiño *iz adkor* alki txikia.

Sozialixtek 13 alki, orai arte baino bat gutiago, eta Ezker Batuak 3 **alkiño**, bat probintzia bakoitx, orai arte bi zituelarik bakarrik. Herria

Zenatur **alkiño** bat nahi bailuke segurtatu hilabete huntan berean, 18-an hain xuxen. Herria

---

alkitran *(ETCn **52** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **brea**, **galipot** eta **mundrun** agertzen dira) iz* galipota, alkaterna. ik **brea**; **mundrun**.

Lekurik nabarmenenean, pastel gris ikaragarri bat hilobi baten forman, **alkitrana** bezalako garrapiñaz hitz hauek osatuak zituena: [...]. Iñaki Mendiguren

Alkitranez itsututako eguzkitako betaurrekoak eman dizkie gidariak Carodi eta honen laguntzaile Jaume Renyer-i, eta ETAko ordezkariekin bilera egin beharreko lekurantz abiatu dira. Berria - Euskal Herria

---

alkohol *(orobat **alkol** g.er.)* **1** *iz* ardoaren eta beste edari bizien destilaziotik ateratzen den isurkari koloregabe eta sukoia. ik **etanol**.

Alkohola edatearen onuraz jardungo zaizkizu kantuan. Andoni Egaña

Edan ahala, **alkoholaren** espirituak biziturik, almirantearen oroimena argituz joan zen. Felipe Juaristi

Bakarka, aldiz, zorrozkeriak kamusten laguntzen zion **alkoholak**. Mirentxu Larrañaga

Ongi nekien nik, Honorérengan ikusia nengoen, **alkoholak** zeharo bestelakotzen duela jendea. Joxan Elosegi

- Ez nizun egin aurretik ezer esan gura, ez konprometitzeagatik - lasaiago mintzo zen orain, **alkoholaren** zamak on eginda legez. Koldo Izagirre

Alkohol eta tabakoz aserik, hain segur lehengo kezkak ahantzarazi dizkio, zer baitziren ere. Eneko Bidegain

Begira horiei: begiak **alkoholez** eta desiraz, odoletan injektaturik. Iñaki Iñurrieta

Alkoholak laguntzen dizu. Lourdes Oñederra

Erre egiten zuen, uretra gasolina edo **alkohola** egiten ari bailitzan komunean behera. Hasier Etxeberria

Baina Europan **alkoholean** urtero gastatzen denaren % 10 baino gutxiago, edo Estatu Batuetan etxeko animaliak elikatzeko behar denaren % 50 baino gutxiago. Pello Salaburu

Azken honek afalaurrean **alkohol** dezente edan eta afarian ardoa edaten jarraitu zuenez, jandako janariak ez zuen ziurraski hura guztia xurgatzeko ahalmenik izan eta orain, gainera, gehitxo edaten ari zen berriz, aitak sortzen zion urduritasuna pixka bat baretu nahian. Aitor Arana

Egoeraz baliatuta eta **alkoholaren** indarrak harrotuta, Lauaxetari buruz azken egunotan buruan bueltaka ibilitako ideia edo teoria batzuk mahairatu nituen. Juan Luis Zabala

Ama aipatzen zuen, aita, **alkohola** trafikatzen zuela, ezezagun batzuek Riverside aldean zitzikatu ziotelako, oraino haur hotza zela. Itxaro Borda

Ez dugu **alkoholik** zerbitzatzen. Ibon Uribarri

Ulergarria da oso: batzuei **alkoholarekin** gertatzen zaie; beste batzuei, berriz, tabakoarekin edo beste drogaren batekin. Joxerra Garzia

2 kimikan, alkoholaren ezaugarri kimikoak dituzten gaien mota

Geure etxeetan egungo egunean botikontzi bat izaten da: **alkohola**, aspirinak, zauri-estaltzeko zerrendatxoak.. ø aurki zenitzake barruan. Gotzon Garate

Enbeitak lanpara piztu zuen zoruaren erdian, nondik nora eskuratzen zuen ez genekien **alkoholezkoa**. Koldo Izagirre

" **Alkohola** badu? " galdetu zuen, eta baietz eta, jo eta orkatilako zaurian isuri zuen. Pablo Sastre

Alkoholez blaitutako kotoi batekin garbitu zion besoko zenbakia. Josetxo Azkona

Usaina ezagutzen du: erretzeko **alkohola** da. Oskar Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lau egun haietan goizetik arrats den-denok mozkorturik edukitzeko adinako **alkohol** kopurua zegoen han. Xabier Mendiguren Elizegi

-Lortu dugu, adiskide, lortu dugu! -esan dit, **alkohol** hatsa zeriola. Jon Arretxe

Alkohol usaina zeriola sentitu zuen. Juan Garzia

Tom ordubete barru etorriko da, bere toxa ipurmasailen kontra gorderik duela; orduan, larruzko besaulkietan amilduko dira biak, eta **alkohol** basokada handiak edanen dituzte eta zeruko sua haien eztarriak kiskaltzera etorriko da, eguzki erre izugarri baten pisua sumatuko dute. Monika Etxebarria

Alkohol-edariei buruzko arauak. Elizen arteko biblia

Zenbaki horri gehitu behar zaizkio bertze 22.000 heriotze, **alkohol** soberakinaren gatik gertaturikako ixtripuen ondorioz. Herria

Santik, biok bakarrik geratu ondoren, beso artean estutzen ninduen ohean, eta **alkohol** hatsaz belarrira "Txo, zu edukiko ez bazintutøø." esan ostean, zurrungaka hasten zen berehala. Jon Arretxe

4 ***alkohol absolutu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Beste era batera esanda, ur-alkohol nahastearen 100 bolumenetan dagoen **alkohol absolutuaren** bolumena (v/v); hori dena 20ºC-an neurtuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***alkohol bentziliko*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Alkohol bentziliko baten oxidazio selektiboa manganeso dioxidoarekin ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***alkohol etiliko*** *(corpusean ez dago; ETCn **43** agerraldi)*

Etanola, etil alkohola edo **alkohol etilikoa** alkohol molekula organiko bat da (CH3-CH2OH). Alkohol talde funtzionala (-OH) lehen karbonoan du. ETC-entziklopedia

Bigarren hau mendean hartuz gero, azukre soilak (fruktosa eta glukosa, batik bat) **alkohol etiliko** eta karbono-anhidrido bihurtzen dituzte entzima setati batzuek. ETC-prentsa

Gogora dezagun, gainera, **alkohol etilikoak** proteinak gogortzen eta gatzak deshidratatu egiten dituela, hau da, sutan lortzen diren emaitzak erdiesten dira horrela, berotasunik aplikatu gabe. ETC-prentsa

Edariaren etanola edo **alkohol etilikoa** urdailean eta hestean xurgatzen da. ETC-prentsa

Alkohol etilikoa eta puruaren zergak %25era igoko dira. ETC-prentsa

Likorea, definizioz, pattar azukretu eta lurrindua da, litroko, gutxienez, 100 gramo alkohol duen edaria (likoreen gradu alkohometrikoa 15etik 55era doa) da, **alkohol etilikoa** lurrintzearen bitartez edo destilatu batetik ekoitzia. ETC-prentsa

Horra lehen kopetakoa: "Lovejoy kometak 500 botila ardok adina **alkohol etiliko** isurtzen du espazio zabalera, segundoko". ETC-prentsa

1.-Debeku dira **alkohol etilikoaren** portzentajea ehuneko 20koa baino handiaoa duten edariak zuzen nahiz zeharbidez saltzeko publizitate eta telesalmenta mota guztiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina ura erabiltzeak hidrolisi-arazoak sortzen dituenean, **alkohol etilikoa**, alkohol isopropilikoa edo erabilera industrialeko disolbatzaile lurrunkor metilatuak erabil daitezke, eta, gainera, merkeagoak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alkohol izena, hala ere, gutxienez % 94,9-96,6 v/v duen **alkohol etilikoa** izendatzeko erabiltzen da (kontsultatzen den farmakopearen arabera, aldatu egin daiteke datu hori). ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, mikrobio batzuek (batez ere legamiek) sagar-zukuan dauden eta kalterik egiten ez duten azukreak **alkohol etiliko** (etanol) bihurtzen dituzte; alegia, gure nerbio-sistema aztoratzen duen substantzia bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 ***alkohol gradu*** *(corpusean ez dago; ETCn **46** agerraldi)*

Ardoak %13,5eko **alkohol gradu** portzentajea du, etiketan hala jartzen du. ETC-literatura, saiakera

Lasaitzeko ari nintzaion ene buruari esaten ardoa sagardoa baino arriskutsuagoa dela, ardoak beti hamalau bat **alkohol gradu** izaten dituela, baina sagardoak inoiz ez bost edo sei gradu baino gehiago. ETC-literatura, saiakera

Haren aurpegi gorrituak distira egiten zuen, izerditan pats, eta haren hatsak ehun eta laurogei **alkohol-gradu** harrapatuko zituen. ETC-literatura, saiakera

Aurten 11 **alkohol gradu** izango ditu, txakolinak behar duen batez bestekoa. ETC-prentsa

Kontrol horietan honako faktoreak kontuan hartzen dira: mahatsaren pisua, **alkohol gradu** posiblea, azidotasun tartikoa, pHa, azido malikoa, potasioa, polifenolak eta intentsitate koloratzailea. ETC-prentsa

Etorriko zaizu atzera zerbitzaria, mahai gainean jarriko dizu eskatu duzun edari bete edalontzi izotz eta **alkohol gradu** askorekin, eta zenbat zor diozun esango dizu. ETC-prentsa

Litro batean **alkohol gradu** bat lortzeko, 17 gramo azukre bota behar da. ETC-prentsa

Iazkoak **alkohol gradu** gehiago zuen, ardo biribilagoa zen, nolabait esateko. ETC-prentsa

Besteren beharrik gabe, **alkohol gradu** apaleko pitar edo minata eder askoa egiten zuten berarekin. ETC-prentsa

Sagardoari dagokionez, berriz, "edanerraza, lehengo urtean baino **alkohol gradu** gutxixeago duena eta kolorez ere argixeagoa" dela azaldu du. ETC-prentsa

Debekatuta dago berezko **alkohol-graduak** era artifizialean gehitzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***alkohol graduazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Ordena horretan nahastea komeni da, eta ez alderantziz, une oro ahalik eta **alkohol-graduaziorik** handiena lortzeko, gai alkoholsolubleen disolbagarritasuna murriztu ez dadin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Berak kafea, nik tea, eta etxeak digestio-laguntzaile bat eskaini zigun doan, oso erraz sartzen zen amarettoa, nahiz eta **alkohol graduazioa** dezente altua zuen. ETC-literatura, saiakera

Beroak eta eguzki izpiek azukre kantitatea zeharo igoko dute, eta horrela **alkohol graduazio** handiko ardoak lortuko dira. ETC-prentsa

Horrez gain, sagardoak badu berezkoa duen indargunea ere: **alkohol-graduazio** baxua; ezaugarri organoleptiko oso interesgarriak ditu. ETC-prentsa

Alkohol graduazio baxuagoa du, eta freskotasun sentsazio handiagoa uzten dizu amaieran. ETC-prentsa

Freskoa, usaintsua, ahoan gorputz ederrekoa, txinparta finekoa eta ohi baino **alkohol graduazio** handiagokoa izango da aurten dastatu ahalko den sagardoa. ETC-prentsa

Barnealdeko txakolina da Arabakoa, ezin bestela: eguzki ordu gehiago hartzen dute mahastiek, eta, hortaz, **alkohol graduazio** handia izaten du, hamabi eta hamahiru gradu

artekoa, normalean. ETC-prentsa

Gorria (italiarra) gozoa da, eta zuria (frantsesa), lehorragoa eta **alkohol graduazio** handiagoa du. ETC-entziklopedia

Garagardoak 6,5-eko **alkohol graduazioa** du, eta jatorriz Betanzos inguruan ereindako lupuluaren zapore mikatza. ETC-entziklopedia

Gaur egungo garagardo gehienaren **alkohol-graduazioa** %4 eta %6 artean dago, nahiz eta badiren %0,5 eta %20ko **alkohol-graduazioa** dutenak ere. ETC-entziklopedia

Sojuaren kolorea argia da, eta **alkohol-graduazioa** %16,8tik %53ra bitartekoa izan ohi da, ohikoena %20koa izanik. ETC-entziklopedia

9 ***alkohol metiliko*** metanola.

Faltsuturiko edariek alkohol **metiliko** kopuru handia zuten. Berria - Gaiak

10 ***alkohol proba*** *(corpusean ez dago; ETCn **189** agerraldi)*

Ertzaintzak motorraren gidaria atxilotu zuen, **alkohol probetan** positibo eman ostean. ETC-prentsa

Bestalde, **alkohol proba** zorroztuz joan diren heinean, jendeak gero eta ur gehiago edaten du: "Orduan ere zerbait berezia bilatzen dute". ETC-prentsa

Urretxun (Gipuzkoa) aurtengo abendura arte gidabaimena kenduta zuen gidari bat atxilotu zuten larunbatean, **alkohol proba** ez gainditzeagatik. ETC-prentsa

Gidariak negatiboa eman zuen **alkohol proban**. ETC-prentsa

Hiru elkarteekin batera hasitako programen bidez, hamar mila **alkohol proba** prebentibo egingo dituzte herriko jaietan. ETC-prentsa

8.600 **alkohol proba** egin ditu jendarmeriak, eta 132 gidabaimen kendu dituzte bost gautan. ETC-prentsa

Motorzaleari **alkohol proba** egin zioten, baina ezezkoa eman zuen. ETC-prentsa

Goizeko ordu tipietan **alkohol probak** egiteko kontrolak ezarri zituzten Baionako ateratze guzietan. ETC-prentsa

Besta sobera luzatu eta nonbait ez ziren sentitu balizko **alkohol proba** gainditzeko heinean. ETC-prentsa

Abuztuaren 22an, goizeko 10: 00etan **alkohol proba** egiteko gerarazi zuen Ertzaintzak herritar bat Berriatuko Plazakolan (Bizkaia). ETC-prentsa

137 gidari baimendutako alkohol maila gainditzeagatik atxilotu zituen, 12 **alkohol proba** egin nahi ez izateagatik eta 31 gidatzeko baimena ez edukitzeagatik. ETC-prentsa

Iazko urrian, Tarragonan (Herrialde Katalanak), atxilotu zituzten **alkohol proba** batean, Urbancasa etxe agentzia itxi eta ihes egin ondoren. ETC-prentsa

Alkohol proba istripua gertatu eta ordu eta erdira egin zela ere jasotzen du txostenak. ETC-prentsa

Foruzaingoaren arabera, Berriozarren jarritako **alkohol proba** batetik ihes egiten eta bidean foruzain bat harrapatzen saiatu zen gidaria. ETC-prentsa

11 ***alkohol tasa***

Alkohol tasa altua eta abiadura gehiegikeria hartzea ausarkeria gisa hartu da Espainiako Zigor Kode berrian. Berria - Euskal Herria

Alkohola: Odoleko **alkohol tasa** %0,5 edo gehiago delarik, gidari berriak berehala galduko du gidatzeko baimena. Berria - Euskal Herria

Istripuak saihesteko hainbat gomendio egin dituzte, hona hemen horietako batzuk: seinaleztapenak hobetzea, abiadura murriztea, **alkohol tasa** txikitzea, bideak ondo argiztatzea, eta ibilgailu gogorragoak eta seguruagoak egitea. Berria - Gaiak

Hazia zeukan baginan; odolean, berriz, **alkohol tasa** handi samarra. Migel Angel Mintegi

12 ***binil alkohol*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Binil alkohola edo etenola (IUPAC: etenol) enolik sinpleena da. Bere formula kimikoa Karbono C2hidrogeno H3oxigeno Ohidrogeno H (H2C=CHOH) eta bere CAS zenbakia 557-75-5 dira. Egoera normalean, azetaldehidoan tautomerizatzen du. ETC-entziklopedia

Hasieran eratutako produktua, etenola (**binil alkohola**), ezegonkorra da, eta bere kasa transposizioa jasan eta aldehidoa sortzen da (ikus 13 eta 18 kapituluak). ETC-zientzia, zuzenbidea

14.1 Kapitulu honetan aurkeztutako egiturak oinarri hartuta, marraztu polimero hauen errepikapen unitateen egiturak: (a) poliklorotrifluoroetilenoa eta (b) poli (**binil alkohol**) a. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 ***etil alkohol***

Brasilen ere asmoa dute bost urtetan garraioaren %80a azukre kanaberatik ateratako **etil alkoholez** mugitzeko. Berria - Harian

Suedian asko erabiltzen da **etil alkohola**. Berria - Harian

14 ***isopropil alkohol*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Isopropil alkohola, 2-Propanola edo isopropanola (IUPAC: propan-2-ol) alkohol koloregabea da, sukoia, usain bizikoa eta urarekin oso nahasgarria. ETC-entziklopedia

Azaleko partikulak kentzen ditu horrek, eta burua trabatzea eragozten du (**isopropil alkoholetan** bustitako oihalezko zinta da onena). ETC-zientzia, zuzenbidea

15 ***zur alkohol*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Garai batean zuraren destilazio lehorraren bidez lortzen zen. Horrela aurkitu zuen lehen aldiz Robert Boylek 1661ean. Hori zela eta, "**zur alkohola**" ere deitu izan da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alkohol eta (9); **alkohol gehiago** (8); **alkohol gehiegi** (4); **alkohol kontsumoa** (4); **alkohol tantarik** (8); **alkohol tasa** (5); **alkohol trafikatzaile** (3); **alkohol usaina** (4); **alkohola edanez** (3); **alkohola edatea** (4); **alkohola edateko** (4); **alkohola edaten** (13); **alkohola ere** (5); **alkohola eta** (34); **alkohola eta droga** (3); **alkohola eta tabakoa** (4); **alkohola ez** (4); **alkohola izan** (3); **alkohola saltzen** (3); **alkoholak ere** (3); **alkoholak eta** (9); **alkoholak ez** (4); **alkoholarekin edo** (3); **alkoholaren eragina** (7); **alkoholaren eraginez** (3); **alkoholaren eraginpean** (6); **alkoholaren eta** (9); **alkoholaren eta gaupasaren** (3); **alkoholaren kontsumoa** (5); **alkoholaren menpeko** (4); **alkoholez eta** (3); **alkoholik edan** (5); **alkoholik edaten** (5); **alkoholik ez** (4); **alkoholik gabeko** (6); **alkoholik gabeko edariak** (3); **baino alkohol** (7); **baino alkohol gehiago** (4); **da alkohola** (7); **da alkoholaren** (4); **du alkoholaren** (4); **dute alkoholik** (3); **eta alkohol** (17); **eta alkohola** (21); **eta alkoholak** (10); **eta alkoholaren** (5); **eta alkoholez** (4); **eta alkoholik** (6); **eta alkoholik gabeko** (3); **tabakoa eta alkohola** (4); **zuen alkohol** (3)

---

alkoholdun 1 *izond* alkohola duena.

Sake: Arrozetik lortzen den edari **alkoholduna**. Ibon Uribarri

Milosevicek edari **alkoholdunak** eta botikak zituen bere gelan. Berria - Mundua

Ez nahastu edari **alkoholdunekin**, zioten prospektuko letra berdeek. Harkaitz Cano

Legez kanpokoa baita izatez kalean alkohola edatea: hori da filmetan edari **alkoholdunak** dituzten botilak beti paperezko zorro marroi batean bilduta azaltzearen arrazoia. Harkaitz Cano

Toki publikoetan edaten omen da gero eta gehiago, dela karriketan, dela plazetan, norberak edari **alkoholdunak** erosirik. Herria

Garagarrez eginiko edari **alkoholdun** freskagarria. Jose Morales

Alkoholaren eragin kaltegarrien berri emateko informazio kanpainen bidez asko daude drogaren esparruan, baina oso gutxi alkoholari buruz dihardutenak; edari **alkoholdunen** publizitatea debekatuz. Berria - Euskal Herria

Gorputzaren ur horniketa errazteko, ez da komeni edari **alkoholdun**, kafeinadun eta azukredunik hartzea. Berria - Harian

Ustez baino ez, buruaren inguruan bekokia erdi estaltzen dion bendajea badu ere ohe azpian botilak baititu, denetariko edari **alkoholdun** botilak. Edorta Jimenez

Etxebizitza, garraioa, elikagaiak, edari ez **alkoholdunak** eta beste ondasun eta zerbitzuak izan ziren gehien garestitu ziren sektoreak. Berria - Ekonomia

2 ***alkoholdun edari***

Batetik **alkoholdun edariak** txarrak direla agintzen dizuegu familietan eta eskoletan, baina esatariak ikusiko dituzue ardoarekin edo xanpainarekin eskuetan, paparrekoa laxo, gora gu eta gutarrak esango balute bezala. Pello Salaburu

Asteburuetan, **alkoholdun edariak** edatera sartzen ziren ikastetxe barrura. Berria - Euskal Herria

Alkoholdun edariak eta tabakoa ere ez dira asko garestitu: %0,2 Araban eta 0,1 Nafarroan; Bizkaian ez dira prezioak aldatu, eta Gipuzkoan %0,1 jaitsi dira. Berria - Ekonomia

3 *edari alkoholdun*

Sake: Arrozetik lortzen den **edari alkoholduna**. Ibon Uribarri

Ustez baino ez, buruaren inguruan bekokia erdi estaltzen dion bendajea badu ere ohe azpian botilak baititu, denetariko **edari alkoholdun** botilak. Edorta Jimenez

Ez nahastu **edari alkoholdunekin**, zioten prospektuko letra berdeek. Harkaitz Cano

Eta arnoa **edari alkoholdunetan** barne da, bixtan da, ez balin bada bortitzenetarik ere. Herria

22 Kvas: garagarrez **eginiko edari** alkoholdun freskagarria. (Itz. oh.). Jose Morales

Gogora etorri zitzaion gizon bat -**edari alkoholdunen** saileko agente bat-, behin harro-harro esan zuena: "Gaur bostehun koroa irabazi ditut, eskurik mugitu gabe!". Anton Garikano

Legez kanpokoa baita izatez kalean alkohola edatea: hori da filmetan **edari alkoholdunak** dituzten botilak beti paperezko zorro marroi batean bilduta azaltzearen arrazoia. Harkaitz Cano

Gorputzaren ur horniketa errazteko, ez da komeni **edari alkoholdun**, kafeinadun eta azukredunik hartzea. Berria - Harian

San Mamesera ezin dira **edari alkoholdunak**, armak edo zelaira jaurti daitezkeen objetuak sartu, eta bortizkeria eragin dezaketen ikur, lelo edo jokaerak debekatuta daude. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alkoholdun edariak** (5); **alkoholdunak eta** (3); **edari alkoholdun** (3); **edari alkoholdunak** (5); **edari alkoholdunen** (4)

---

alkoholemia 1 *iz* odolean alkohola egotea.

Udako jaiez jositako Euskal Herriko errepide kontrolez josietan ez ninduten behin ere gelditu, ezta **alkoholemia** neurketa ziztrin bat egiteko ere. Iban Zaldua

Autoko gidaria atxilotu egin zuten, **alkoholemia** kontrolean onartutako kopurua gainditu zuelako. Berria - Harian

54 urteko gidariari **alkoholemia** proba egin zioten, eta positibo eman zuen. Berria - Kirola

Hertzainek hiru gidari atxilotu zituzten egunero **alkoholemia** probetan positibo emateagatik. Berria - Euskal Herria

-Beharrik ez zaie **alkoholemia** azterketa egiten hildakoei, bestela a zer zigorra hartu beharko zuten geure bi lankideek...! Koldo Izagirre

Izan ere, autobideko gertaeraren ondoren, ez bide zieten ez **alkoholemia** testik egin, ez era arriskutsuan gidatzeagatik salaketarik jarri. Iñigo Aranbarri

Inkestaren barnean **alkoholemia** eta toxikologia analisiak egin dituzte, baina atzo ez zuten analisi horren emaitzarik eman. Berria - Euskal Herria

2 *alkoholemia kontrol*

Gizonak dira iaz **alkoholemia kontroletan** EAEn atxilotuen %95. Berria - Euskal Herria

Leopoldo Barredaren ahots zakarra "ospakizun batengatik» ez ote zen izango galdetu zuen eta, akaso, aurrerantzean Legebiltzarreko atarian "**alkoholemia kontrolak** » jarri beharko direla gaineratu. Berria - Euskal Herria

Autoko gidaria atxilotu egin zuten, **alkoholemia kontrolean** onartutako kopurua gainditu zuelako. Berria - Harian

3 *alkoholemia proba*

Ertzaintzak iaz 1.310 kontrol egin zituen arau hausteen ostean, eta horietan 974 gidari atxilotu zituzten, %74,4; istripuen ostean, berriz, 3.967 gidariri egin zieten **alkoholemia proba** eta 560 atxilotu zituzten, %14,1. Berria - Euskal Herria

Udaltzainek **alkoholemia proba** egin zioten gidariari istripuaren lekuan bertan, eta ez zuela edan egiaztatu zuten. Berria - Euskal Herria

54 urteko gidariari **alkoholemia proba** egin zioten, eta positibo eman zuen. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alkoholemia eta** (3); **alkoholemia kontrol** (3); **alkoholemia proba** (4); **alkoholemia proban** (7); **alkoholemia proban positibo** (3); **alkoholemia probetan** (4); **alkoholemia probetan positibo** (3); **eman zuen alkoholemia** (4); **zuen alkoholemia** (4); **zuen alkoholemia proban** (3)

---

alkoholeztatu *iz* alkoholez betea.

Larrua jotzen ere imajinatzen zaituzte bere burmuin **alkoholeztatuak** ematen dizkion irudi nabarretan. Lourdes Oñederra

---

alkoholiko 1 *izond* alkoholarena, alkohoa daukana, alkoholari dagokiona, alkoholak eragina.

Merkatu egin ziren, aldiz, edari **alkoholikoak**, tabakoa eta elikagaiak. Berria - Ekonomia

Akats bakarra, sobera solasturia izatea, nire beheraldi **alkoholikoetan** batere komenigarria ez zena. Aingeru Epaltza

Dr. Jekyll prestuaren eta bere Hyde presentaezinaren bertsio **alkoholiko** eta -nire inguruari begiraturik, bederen- aise ere gureagoa. Aingeru Epaltza

Halakoetan pasatzen zitzaigun moduan -nire egonaldiaren azken boladan batik bat- aitorpen **alkoholikoen** zurrunbiloan sartu ginen ohartu orduko, whiskiaren laguntza estimatuaz. Xabier Montoia

Lagun zaharren artean nagoela sentitzen dut oraintxe, une **alkoholiko** gisako baten zelebrantzan ari naizela. Harkaitz Cano

Gisa horretako lokaletan izan ohi den atergabeko jai-giro **alkoholikoa**, gaupasa-giroa, beti higuingarria izan zait. Eduardo Matauko

Kristinak irri apal eta luzea egin zuen, txor-txor **alkoholiko** bat, eta nik barre murritz batez erantzun nion bere ateraldi zentzugabeari. zauden sofa granatean, eta ez dago ez atzapar gihartsurik, ez tripa puztu iletsu eta zain lodiz betetakorik, ez lan osteko zirririk bere emazteak ezagutzen ez duen Euskal Herria kaleko apartamentuan, ez sudur zabaleko gazterik Kubako hondartza batean, ez saunarik, ez ordu txikietako eskusartze **alkoholiko** eta anonimorik modaz haratagoko diskoteketan, ez ezer. Aingeru Epaltza

Ez nuen gogoan emakume **alkoholiko** etxegabe horri zer putakeria egin nion hogeita hamar urte lehenago. Aingeru Epaltza

Iruditu zitzaidan gizartearekin hautsi zuen emakume hura, abituak utzi zituen emakume erdi-lesbiana erdi-**alkoholiko** hura, egun batean zer bihurtuko zen ez zekien huraxe bera izan zela lagundu zidana Martainvilleko kaleetan barrena bakarrik eta galduta nengoenean. Joseba Urteaga

Ordura arte ezin esan inoiz edanari emana bizi izan nintzenik -coca-colari eta fantari ez bazen, aita **alkoholikoaren** irudia bainuen, atzeraka eragiten zidana-. Joan Mari Irigoien

Ustekabeko zorigaitz hark trago bat eskatzen baitzuen, eta ez edozein trago gainera, gradu **alkoholikoan** gorantz samar zihoazen edarienak baizik. Joxemari Iturralde

Jack Cunninghamen begi urdin **alkoholikoak** begira zituen, adi-adi. Lopez de Arana

Oso zaila da esteatosis **alkoholikotik** bereiztea neurriz kanpoko alkohol kontsumoak eragindako gantz pilaketa. Berria - Gaiak

Gibel gantzatsuaren gaixotasun ez-**alkoholikoa** ere esaten zaio. Berria - Gaiak

William, zaharrena, gazterik hil zen, tuberkulosi **alkoholikoz**. Koro Navarro

Gizonezkoa **alkoholikotzat** jotzen da, baina emakumezkoa biziotsu gisa ikusten da, eta askoz arbuio gogorragoa eragiten du gizartean. Berria - Gaiak

2 (izen gisa) alkoholaren mendean dagoen pertsona.

Lagunartean entzun nuen behin: laurogeita hemeretzi edo ehun urtera arte bizi izan zen **alkoholiko** baten semea zela Franco hura, eta, edaten ez zuenez, eternalki biziko zela. Bernardo Atxaga

Horrela segituz, dudarik gabe, **alkoholiko** bihurtuko nintzela. Daniel Landart

Harrezkero edaten hasi zen, ia **alkoholikoa** egin den arte. Joseba Sarrionandia

Haren aita **alkoholikoa** da eta emaztea jotzen zuen etxean. Berria - Mundua

Alkoholikoa zen, maitale bat zeukan gobernuan, eta halere, bere azken egunetara %65eko popularitatearekin iritsi zen. Pako Aristi

Aita **alkoholikoa** egin zenean nondiknahi jo baitzezakeen trumoi-erasoak. Joan Mari Irigoien

Fikzio horretan, teknika zorrotz eta zuzen baten bitartez, apaingarri estilistiko ohikorik batere gabe, gizarteak itxuraz ahaztuak dituen galtzaile sail bat ezagutzen du -"ikusten", eta batez ere, "entzuten" du- irakurleak: langabetuak, **alkoholikoak**, dibortziatuak, telebistari begira dauden gizaki bakartiak. Koro Navarro

2002an **alkoholiko** susmagarrien datua ere oso altua: %16,5; 1981ean %2,2koa zen. Berria - Euskal Herria

Horrez gain, kalera irteteari eman zion, mozkortu bitartean **alkoholiko** bakartiek kontatzen zizkioten istorio garratzak entzunez inspiratzeko esperantzan. Jon Arretxe

Maribel, susmoa dut **alkoholiko** ganoragabetzat naukazula. Joseba Sarrionandia

Edariari emanak direneri laguntza bat ekarri nahiz sortua da **Alkoholiko** Anonimoak elkartea. Herria

Urte batzuk geroago, krisi gogor samar bat zela eta, taxi batean sartu eta sekaderora -izen hori ematen zitzaion psikiatrikoari bertan egoten ziren **alkoholikoengatik**- berreramaten saiatu ziren. Bernardo Atxaga

3 *delirio alkoholiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Orain sinetsi egingo duzu sorgina piruliña honen **delirio alkoholikoa**? ETC-literatura, saiakera

Delirio alkoholiko edo "delirium tremens". ETC-entziklopedia

1881ean, **delirio alkoholikoaren** krisialdiek jota, ospitale militar batean hil zen San Petersburgon, martxoaren 20an. ETC-entziklopedia

4 *edari alkoholiko*

Aipatu pertzepzio hori **edari alkoholikoak** lortu ezin izanak areagotzen du. Berria - Mundua

Merkatu egin ziren, aldiz, **edari alkoholikoak**, tabakoa eta elikagaiak. Berria - Ekonomia

5 *graduazio alkoholiko* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Mahastian biodinamika dute iparrorratza batez ere **graduazio alkoholikoa** jaisteko helburuarekin. ETC-prentsa

Saihestu **graduazio alkoholiko** altuko edariak (pattarrak, digestiboak). ETC-prentsa

Debekatuta dago mahatsaren, muztioen eta ardoen **graduazio alkoholiko** naturala artifizialki gehitzea, berariaz baimentzen den kasuetan izan ezik. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *hartzidura alkoholiko* *(corpusean ez dago; ETCn **67** agerraldi)*

Hartzidura alkoholikoa: "Saccharomyces" generoko zenbait legamiak azido pirubikoa etanol eta karbono dioxido bilakatu dezakete. ETC-entziklopedia

Mahatsak **hartzidura alkoholikoa** egin baino lehen, zelulen arteko hartzidura egingo du. ETC-prentsa

Eta urtebetean, legamiak **hartzidura alkoholikoa** eragingo dio ardoari biltegian, eta, hain zuzen, ontze horren bidez iraungo du gehiago txakolin horrek. ETC-prentsa

Ardo kupelen bakterioek **hartzidura alkoholikoa** egiten dute. ETC-prentsa

Hartzidura alkoholikoa berez hasten da mahats aleek mahastitik daramaten legamiei esker. ETC-prentsa

Txortena kendu ondoren, zortzi orduko kriomazerazioa ematen zaio, eta, prentsatu ondoren, altzairuzko deposituetan egiten du **hartzidura alkoholikoa**. ETC-prentsa

4.500 litroko upelean burutzen du ardo horrek **hartzidura alkoholikoa**, txortenik gabe. ETC-prentsa

Beste batzuen iritzi, 1897an Eduard Buchnerrek deskribatutako **hartzidura alkoholikoarekin** batera hasi zen, prozesu horren eragilea zen zimasa entzimaren aurkikuntzarekin. ETC-prentsa

Hartzidura alkoholikoa burutzen denean, 225 litroko upeletara pasatzen dute ardoa, bertan hartzidura malolaktikoa egiteko. ETC-prentsa

Ardoa: elikagai naturala, jotako edo jo gabeko mahats freskotik, edo mahats-muztiotik, **hartzidura alkoholiko** osoz edo zati batenaz lortutakoa soil-soilik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehen metodoetatik aipatu behar dira **hartzidura alkoholikoa** eta digestio anaerobioa, prozesu bitzuok mikroorganismoek egindakoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hartzidura alkoholikoa hedatuta dago landareen artean, nahiz eta garagardo-legamiarena den ezagunena. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

alkoholimetro *iz* isurkari bateko edo aireko alkohol kopurua neurtzeko tresna.

Nik, gutienez ere, hik adina arrazoi zaukaat logalez urratua egoteko, baina hemen nauk, bolantearen aitzinean, bertze ordu erdiz gidatzeko prest, zomorroiek geldiarazi eta **alkoholimetroa** ahoan sartuko didaten beldurrik gabe. Aingeru Epaltza

---

alkoholismo *(orobat **alkolismo** g.er.)* *iz* edari alkoholiko gehiegi hartzeak edo alkoholarekiko mendetasunak eraginiko eritasuna.

Ez nuen beraz edanarekiko tiradizorik, ezta harekiko beldurrik; horregatik iruditu zitzaizkidan hain barregarri eta sinesgaitzak zenbait nobela amerikar, gaztetxoen **alkoholismoa** modu ikaragarri eta tremendistan agertarazten zutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

1976ko urriaren eta 1977ko urtarrilaren artean lau aldiz ospitaleratu behar izan zuten **alkoholismoa** zela-eta, diru arazo larriak ere bazirela tartean. Koro Navarro

Lepoan zituen ubelduak, berriz, hil zen eguna baino lehenagoko kolpeen ondorioak zirela, eta biriketan eta garunean agertu ziren orbanak ez zirela asfixia-hasiera batek eraginak, hildakoaren aspalditiko **alkoholismoak** eraginak baizik. Josu Zabaleta

Alkoholismoaren bidetik amilduta, eta bihotzeko konplikazio txar batzuekin, handik gutxira hil zen. Joxemari Iturralde

---

alkoholizatu, alkoholiza(tu), alkoholizatzen *(orobat **alkolizatu** g.er.)* **1** da *ad* norbait alkoholiko bihurtu.

"Bataiatua, alfabetatua eta **alkoholizatua"** hil zen, Rene Pelissier historiagileak esatera. Iñigo Aranbarri

Alkoholizatuta zegoen -emaztea auto-istripu batean hil zitzaionean hasi omen zen goizean goizik ere edaten-. Anjel Lertxundi

Alkoholizatuta zegoela esatea errukigabeegia zen, igual, baina alkoholarekiko menpekotasun-gradu bat zeukala, errukiorregia. Jon Alonso

2 (izenondo gisa)

Segituan, kiratsa; laster, eskaileretan bertan, gazte **alkoholizatu** batzuk; geroxeago, kalearekin berdintzen zen solairuan, beste bi talde lurrean erdi etzanda fumatzen, marihuana edo. Bernardo Atxaga

Amaren seta pianoa ikas zezan, baina, asko ordaintzerik ez zutenez, atso **alkoholizatu** baten etxean egindako ikasketak: "Argi nahiz ilunpe, piano gaineko sei kandela lurrintsu pizten zituen beti, pastis-usaina disimulatu, eta zaletasun haren berri eman ez niezaien neure gurasoei". Anjel Lertxundi

Paretik pasatzean, andra biengan erreparatu eta, lagun baten sorbaldatik erdi eskegita doan euretako batek zerbait murmurikatzen die, zerbait guztiz ulertezina bere mingain **alkoholizatuan**. Sonia Gonzalez

Mutikoaren ama **alkoholizatua** zegoen, eta ez zion kasu handirik egiten gizajoari. Berria - Kultura

3 alkohol gehiegi edan.

Gogoeta orokorraren beharra ikusten dute bereziki besta horietan gehiegi **alkolizatzen** diren gaztetxo edo nerabei buruz. Herria

---

alkoholkeria *iz* alkoholismoa.

Alkoholkeriak ixilik eta maltzurki egiten du bere bidea. Herria

Alkoholkeriaren kalteak gutiesten bezala ditugu. Herria

Alkoholkeriaren aztapar suntsikorrak! Herria

Joan den astean, Akitaniako osasun zerbitzu publikoek Angelu-Xibertatik aurkeztu dute Medoc-en eta Euskal Herrian gaindi **alkoholkeria** ttipiarazi nahian abiatzen duten kanpaina berezia. Herria

---

alkoholzale *izond/iz* alkoholaren zalea dena.

Ihesbide moduan Cahit izeneko pailazo **alkoholzalearekin** ezkonduko da, baina ez dira kontu guztiak berak nahiko lukeen bezala gertatuko, hilketa bat tarteko dela, beste arazo batzuen artean. Berria - Kultura

Jainkoak edo naturak ez ziotela marinel izateko dohainik eman eta ez tematzeko bere izateko eraren aurka ez bazuen marinel erretxindu eta **alkoholzale** etsia izanez bukatu nahi zazpi urte baino lehen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Duela lau urtetik akusaziorik eta epaiketarik gabe preso dituzten lau bretoi independentisten eta mugimendu bereko beste 7 lagunen aurkako salaketa gisa **"alkoholzaleak** " zirela adierazi zuten herenegun Dibisio Nazional Antiterroristako hainbat poliziak (DNAT), askotan tabernetan elkartzen zirelako. Berria - Mundua

Ez **Alkoholzale** Anonimoen ildotik, goreneko botere batekin fidatuz, baizik eta egiazko erlijioarekin. Oskar Arana

Berarekin zebilen tipoa ingeniari aeronautiko langabe bat zen, **Alkoholzale** Anonimoetan ezagutu zuena. Koro Navarro

---

alkohozulo *izond adkor* taberna.

Zurrutero galanta zen, eta horrek bihotzekoa ekarri zion Somerako taberna batean zegoela, eta, bueno, **alkoholzuloetako** lagunek Mallonako kanposantuan eman zioten lurra, bai, baina honek, berriz, ederto errezitatzen zituen poemak, Dylan Thomas, Yeats, Whitman eta halakoenak, eta kanposantukideek gustura entzuten zizkioten, batez ere Dylan Thomas-enak, ezin hobeto errezitatzen ei zituelako haren azentu etilikoaz Paddy Rekalde

---

alkol ik **alkohol**.

---

alkolizatu ik **alkoholizatu**.

---

alkondara ik **alkandora**.

---

alkool ik **alkohol**.

---

alkoolismo ik **alkoholismo**.

---

allafera *iz*

Jendetzaren araberako soldadu kopurua bildu behar zuten herriek, hemezortzi eta berrogei urte arteko gizonen artean zozketa behar izan zuten egin, eta horrek sekulako **allafera** sortu zuen. Elena Touyarou

Ez dute nahi **allaferarik** herritarrekin, baina Konbentzioaren buruzagiekin makur biderik ere ez. Elena Touyarou

---

allegatu ik **ailegatu**.

---

allegretto *iz* musikan, allegroa bezain bizia ez den tempoa.

Bigarren joaldian, **allegreto** -an, txukun islatu zuten duen arkitektura dramatikoa. Berria - Kultura

---

allegro **1** *iz* musikan, tempo aski bizia.

Hari- laukotearen **allegroari** ekin zioten, gogoz eta kemenez ekin ere, tresnen sokak indarrez joz. Felipe Juaristi

Sonatako hiletaren zatiari ekiterakoan edo azken zatiko **allegroan** ere ez zuen Nora besterik izan gogoan, nota bakoitzarekin lagunaren bihotza baretu nahirik. Anjel Lertxundi

Irratia atearen azpialdeko bozgorailuetatik zetorren, norbait eserleku azpitik hizketan ari balitzaigu bezala, eta biolin talde baten **allegro** -a sortu zen berehala, iluna zen **allegro** mehe sotil bat. Lander Garro

Luisaz oroitu, haren minak bere egin, eta joan zitzaizkion poliki gerrarako gogoak, **allegroarekin** batera, biolinen arteko borroka alaituz zihoan neurrian. Felipe Juaristi

Allegroarekin hasi dira, **allegro** moderatoarekin. Felipe Juaristi

2 irud/hed

Gaur, egunba eguzkitsua eta alaia sortu izanagatik, **allegroa** dena, bihar, eguraldia ere hala moduzkoa delako, adagio bihur daiteke eta etzi berriz **allegro** ma non troppo. Felipe Juaristi

---

alleluia ik **aleluia**.

---

alleluiaka ik **aleluiaka**.

---

allotar *izond* Nafarroako Allokoa.

Gure aldetik, berriz, Don Carlos gaztea buru, eta bi jeneral heldu eta ospetsu lagun: Joakin Elio Ezpeleta iruinxemea eta Torkuato Mendiri **allotarra**. Txillardegi

alloztar *iz* Nafarroako Allotzko biztanlea.

Nafarro aldean, bai **Alloztarrak** eta baita Huitzitarrak ere, erromeria egiten dute apirilaren 16an, errogatibak eginez, kyrieleisonka; batzuek, egunean bertan, eta besteok, Pentekoste ondoko ostegunean. Pello Zabala

almadia *iz* enbor multzoa, elkarrekin loturik ibaian behera eramaten dena.

Haren olatuak laburrak dira mediterraneo guztietan bezala, eta beldurra sortarazten diete udan nabigatzen duten **almadia**, txalupa eta steam-boatei. Karlos Zabala

Ninfak joan eta esan zion uzteko negarrak eta mozteko enbor batzuk, haiekin **almadia** bat egiteko, etxera bidaliko zuela eta. Juan Kruz Igerabide

Almadia bat erraz mugitzen da aintziran hara eta hona, baina ezin era berean egin Angararen ur ertzen artean. Karlos Zabala

1955ean Noeren Kutxan zeuden etengabeko haur abandonatu hauek Thor Heyerdahl eta bost lagun bikingoak enborrez egindako **almadia** batean 1947ko abuztuaren 7ko goizean aurkitu ziren egoeran zeuden. Iñaki Mendiguren

Handik ordu erdira, **almadia** ibaian sartu zen, Livenitxnaiako portutxoa utzi ondoren. Karlos Zabala

Ur lasterrak nahierara bultzatzen zituen jelak, eta **almadia**, ur gaineko horma puska haien erdian nahasita, oharkabe zihoan aurrera. Karlos Zabala

Beste versta batzuetan aurrera segitu zuen **almadiak** ur gaineko izotzen erditik. Karlos Zabala

Almadiak ere pasatzen ziren, Atlantikoko sargazo ilara bukaezinak bezain luzeak; bai eta txanelak ere, gainez kargaturik, hondoratzeko zorian, uretan kareleraino sartuak. Karlos Zabala

Haize pizar bat bazetorkien mendebaldetik, alde hartako mendi elur zurituak axaletik ukitu ondoren, eta orratzak izan balitu bezala ziztatzen zituen **almadiako** bidaztiak. Karlos Zabala

Alcide Jolivet berehala hasi zen marinel zaharrarekin solasean, eta bai bera bai bere laguna **almadian** eraman zitzan erregutu zion. Karlos Zabala

Ibaian gora puska luze bat ontziz eta beste puska bat **almadiaz** egin ondoren, egunsenti batez, beste aldea jo genuen. Juan Garzia

Emakumeak eta haurrak **almadiaren** erdira bildu ziren, eta gizonak, batzuek hagak eskuetan, beste batzuek ganibetak eta gehienek makilak, erasotzaileei aurka egiten hasi ziren. Karlos Zabala

Elizgizon horiek **almadiaren** brankara bildu eta errezoan ari ziren. Karlos Zabala

Baikaleko marinel zahar batek hartu zuen **almadiaren** agintea. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **almadia bat** (5); **eta almadia** (3)

almadiazain *(corpusean ez dago; ETCn **132** agerraldi)* *iz* almadia gidatzen duena.

Eta artzain eta **almadiazain** haietarik batzuk Uxuera ezkondu, eta belaunaldi berriak jaiotzen ziren, enbor haiekin eraikitako etxeetan. ETC-literatura, saiakera

Inoiz pantailara eraman gabeko jaiak eta irudiak filmatu genituen lehendabiziko aldiz, esaterako **almadiazainak**, ikazkinak, Alesbesko dormidos izenekoak, Etxalarko usategiak... ETC-prentsa

Ibarrean tradizio handia izan duten bi lanbideen testigantzak ere bildu dira: artzaintza eta **almadiazainak**. ETC-prentsa

Burgin **Almadiazainen** Eguna duten gisan, polita litzateke belar jaitsierarekin festa antolatzea. ETC-prentsa

Laguntza beharrik gabe pasa da hori ere, eta ibai hondoko harriak laztanduz izan bada ere, lortu dute **almadiazainek** beren bidean jarraitzea. ETC-prentsa

Izan ere, Indurainek **almadiazain** lanak egin zituen, eta hura zeraman almadia izan zen Burgira iristen lehena. ETC-prentsa

Almadiazainez beteta zegoen garai batean Nafarroako Pirinio ingurua. ETC-prentsa

Eta **almadiazain** zaharren modura jantzita egin nuen bidea. ETC-prentsa

Duela hiruzpalau urte, Dani Telleria **almadiazain** gisa irten zen Almadia Egunean. ETC-prentsa

Almadiazainek Ezka ibaitik jaitsi eta Aragon ibaitik segitzen zuten Ebro ibaira iritsi arte. ETC-entziklopedia

Almadiaren Eguna, Nafarroako Erronkaribar haraneko Burgi udalerrian urtero maiatzaren lehendabiziko egunetan ospatu ohi den almadiari buruzko eta **almadiazainen** omenezko jaieguna da. ETC-entziklopedia

almadiero *iz* almadia gidatzen duen pertsona.

Errekaren ura baliatuz, zuhaitz trunkoak edo enborrak igerikarazten zituzten elgarri lotu ondoan, **almadieroen** bitartez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

almaiz *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)* **1** *iz* mortairua, motrailua.

Motrailua, **almaiza**, zaparria edo almeriza material gogorrez (zurez, metalez, marmolez, etab.) egindako ontzia da, aleak, drogak, etab. xehakatuz osagaiak xehatzeko, birrintzeko edo saltsa batzuk egiteko erabiltzen den tresna. ETC-entziklopedia

Piperra **almaizean** xehetu hauts egin arte. ETC-literatura, saiakera

Lantegian denbora luzeagoan geratu ahal izateko, laguntzen saiatzen zen: hauspoari eragin, burdinagarekin berun urtua nahastu edo sufrea eta fosforoa **almaizean** birrindu. ETC-literatura, saiakera

Almendrak labean erre eta gordinik geratzen diren beste bi baratxuri puskekin **almaiz** edo motrailuan txikitu. ETC-prentsa

Abuztutik urrira arte, bestalde, Foruko erromatar herrixkaren **almaiza** izango da ikusgai. ETC-prentsa

2 ***almaiz-esku*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Asmakuntza haietakoak ziren, besteak beste, zurezko edo hezurkizko kirtenetan txertaturiko suharrizko igitaiak, basabihiak biltzeko; saskiak, haiek hazten ziren mendi-magaletatik etxera eramateko; motrailuak eta **almaiz-eskuak** edo ehotzeko harlauzak, azala kentzeko; aleak txigortzeko teknika, hozitu gabe gorde ahal izateko; eta lurpeko biltegiak, batzuk igeltsuztatuak, iragazgaitzak izan zitezen. ETC-literatura, saiakera

Iritsi nintzenean, **almaiz-eskua** hartu, eta mehatxu egin nion harekin emango niola buruan, ama egurtzen bazuen berriro. ETC-literatura, saiakera

almanaka *iz* egutegia.

Gertatzen diren gauzen joanean egutegi bat dago beti azpian, ez egitekoen agenda baten modukoa, baizik eta doazen eta datozen ilargien **almanaka** bat bezalakoa, hona lurrera zeruaren seinale ospetsuak bidaltzen dituzten ilargien **almanaka**. Fernando Rey

Parlamenti buffiko hirugarren liburua, Paradisuko **almanaka** izenekoa, garai modernoaren kontinentean lehorreratzeko saioaren narrazioa da. Pello Lizarralde

Nire **almanakan**, halere, zera dago idatzita: egun batean azkenean Tino aurkitu nuela. Fernando Rey

Almanakako orrietan neska bat dago leiho aurrean kanpora begira euria ari duen bitartean, eta neska hantxe dago epelean udaberria buruan duela. Fernando Rey

Oroitu zen Antje ere bere **almanakako** irudi horretaz, eta irribarre egin zuen azkenean. Fernando Rey

Almanaka bati esker ilargi-eklipse baten berri izan zuen eta indiarrei honako mehatxu hau egin zien: [...]. Martin Anso

Aurretik **almanakak** kaleratu baziren ere, euskal kazetaritza *Eskualduna* astekariarekin indartu zen. Berria - Kultura

Almanakak iragarri bezala, ilargia ezkutatzen hasi zen. Martin Anso

Hala zirudien, malutek aura bat marraztu eta astrologia **almanaketako** erregina bihurtu nahi zutela. azpiliteraturen azterketa, **almanakaena**, aldizkari eta egunkariena, arrakasta iheskorrena, egile aitorrezinena. Bernardo Atxaga

Almanaketako atsotitzek, esaera zaharrek eta erranairuek, denek eduki dezakete berri-itxura. Jon Alonso

Almanaketako errepertorioko beste gauza sorta bat ere kontatu zion. Koro Navarro

1922ko martxoaren 29a zela baieztu zuen neskak, sukaldeko murruan dilindatu *Eskualduna* astekariaren hostozko **almanakan**. Itxaro Borda

Baina baita Errege-eguneko ogia ere, Vermot **almanaka**, gaztaina erreak. Joseba Urteaga

Nihaurk, 1943ko **Almanaka** zahar batean, idatzi nituen lerro batzuk ekarri dizkit etxera eta atseginekin irakurri ditut. Piarres Xarriton

Ilargiak mordoxka bat kontatu ditut jada nire **almanaka** alemaniarrean. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **almanaka batean** (3); **paradisuko almanaka** (6)

---

almandina *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* *iz* granate gorri distiratsua edo morea, bitxigintzan oso erabilia dena.

Almandina granate guztien artean ohikoena da eta sarri granate gorri klasikoa bezala ezagutzen da. **Almandinazko** granatea kolore gorri bikainarekin aurki daitekeen arren (gehienak marroi-gorri ilun, gorri laranjatu eta gorri purpurak), granate harribitxiak oso gutxitan aurkitzen dira forma garbian, eta normalean beste granate mota batzuen trazak edukitzen dituzte, esesartina edo grosularita kasu.. ETC-entziklopedia

---

almandrongila *iz* albondiga.

Izebarekin **almandrongilak** egin zitzakeela ihardetsi omen zioan Ripodasi, baina beretik ez zuela begi-gorririk ikusiko. Aingeru Epaltza

---

almaritz *iz* mortairua.

2002. urtean San Petersburgon zabaldutako museo batek argitu dezake zertxobait kontu hori, han erakusten baitute Rasputinena omen zen zakila formoletan kontserbatua: 30 zentimetroko **almaritz**-kirtena -Neva ibaian erdi izoztu ondoren, gainera. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

almazari *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* ernaltzeko zaldia. ik **garaño**.

Paradako zaldia, hazitarako zaldia, garañoa edo **almazaria** zikiratu gabeko zaldia da, bere ezaugarriengatik ugalketarako behorrak estaltzeko erabiltzen dena, haiek zaldikumeei transmititzeko asmoz. ETC-entziklopedia

---

almazen **1** *iz* dagokionean banatzeko diren salgaiak gordetzeko erabiltzen den eraikina edo lokala.

Dendari batek dendako **almazenean** mokasin granateak baino ez baditu, mokasin granateak jantzita ibiliko garela gu, bi urtez edo bost urtez. Unai Elorriaga

Pisson **almazenak**. Joxean Agirre

Hutsik daude kaleak eta parkeak, haizeak jotzen du eta hostoak harrotzen ditu; hutsik daude soroak eta estazioak trenetik begiratuta; hutsik **almazenak** eta bulegoak, baita gauzez edo jendez beteta ageri direnean ere. Berria - Kultura

Zinearen salak **almazena** ematen zuen eta denetik batzen zen han barruko ilunpean, langabetuak, maitemindu bikoteak, agure jubilatuak, gu bezalako nerabeak eta jende inozentea ere bai. Joseba Sarrionandia

Maguggia zaharra bere postuan geratu zen eta horrela, hondatzaile haiek kooperatibara sartu zirenean, zutik aurkitu zuten, **almazeneko** salmahaiaren atzean. Koldo Biguri

"Denon artean" edo Han Nonbait dena jakina dagoelako sinestean zurrunduak eta zurrungatuak bizi direnak asko eta gehiegi dira; alegia, han nonbaiteko tegi, **almazen** edo sareren batean dena harrapatua dagoela, sumatu ere egin gabe, konparazio batera, S@rea bera ere jakin-beharrezko hidropesia batek zapartatutako gorputz bat dela. Iñaki Segurola

Gizona berrogeita hamar bat metro haratago gelditu da, estazioko **almazenaren** ate ondoan. Pello Lizarralde

Merke-aldietan ikusten da nabarmen, baina urte guztian mantentzen da; jendea uholdeka sartzen da solairu askotako **almazenetara**; supermerkatuetan ez dago aparkatzeko lekurik; zer bilatzen dute niri jasanezina eta ankerra egiten zaidan kontsumoaren liturgia horretan? Pako Aristi

2

Bada Bronxen, Hunts Point deritzon Metro geltokitik oso gertu, bunker itxurako **almazen** handi bat, batere leihorik ez daukana eta auto erdi puskatu erdi errez betetako kale batean dagoena. Bernardo Atxaga

Pontiac etxeko saltokitik, estreinatu gabeko 50 auto ostu zituzten eta izan zen kamioia alokatu eta **almazen** erraldoi bat erabat hustu zuen banda antolatua ere. Harkaitz Cano

Ukuilu bat eman dizuete **almazen** zaharrean. Koldo Izagirre

3 irud/hed

Han ere, turista-guneak dira gehienak edota bestela, El Prado bezalako **almazen** dotoreak. Hasier Etxeberria

Bertsolaria bat-batean ari bada ere, bere burua aurrez prestatu ohi du, **almazena** betetzen du, une aproposik suertatuz gero, bere horretan edo egokitzapenen bat egin ondotik, aktibatzeko. Berria - Kultura

Bertsolaria zer entzungo egongo da beti, esamolderen bat, hitzen bat, arrazoiren bat... bere **almazenean** sartu eta han pilatzeko. Andoni Egaña

Ahotik esana kanpora atera den une berean gure oroimenak esandakotzat hartuko du eta bere **almazenean** gorde. Pako Aristi

Badaki bere buruko **almazenean** zer errima bitxi-loretan hasi behar duen bila. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Esponja bada, bateko eta besteko pasadizo, hitz eta argudiaketekin beteko du **almazena** eta gero, dagokionean, han izango ditu mihiaren punttan. Andoni Egaña

Une batean, **almazeneko** errima zerrendatik egokiak izan daitez-keen hitz batzuk aterako ditugu: *ausardia, izerdia, belardia.* Andoni Egaña

Gure errima-**almazena** berrituz doa eten-gabe, edo hala joan daiteke, hizkuntzari arretarik eskaintzen badiogu. Andoni Egaña

---

almazenatze *iz* dagokionean banatzeko diren salgaiak gordetzea; almazen batean gordetzea. • *irud/hed*

Eta hor errimen **almazenatze** eta ordenatzeak sekulako garrantzia hartzen du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

almea *iz* elkialdeko emakume dantzaria.

Grina falta zuten, furia, eta bai dantzen motagatik bai dantzatzeko eragatik, Indiako baiadera lasai zintzoak oroitarazten zituzten, eta ez Egiptoko **almea** sutsuak. Karlos Zabala

Bai baiaderak bai **almeak** emakume dantzariak dira. Karlos Zabala

---

almeja *iz* txirla.

Itsaskiak (ostra, **almeja**, muskuilua). Edorta Agirre

---

almena *iz* gaztelu eta gotorlekuen murruen gainaldean haiek defendatzen dituztenen babesgarri gisa kokatzen diren harrizko kuboetako bakoitza.

Murruetako arraildurak petatxatu zituzten, lubaki betetzen hasiak sakondu, **almena** hondatuxeak berritu, barneko aldamioak sendotu eta oro har denborak egindako kalteak zuzendu edo estali. Aingeru Epaltza

Bere troparekin zaldiz urruntzen ari zela, atzera begiratu eta gazteluko **almenak** ondo baino hobeto defendatzen zituzten markesaren soldaduen artean San Migelen zutoihala ikusi zuen. Martin Anso

Almena gainetik almuedanoak arramantza zoritxarrekoa entzuten zuen, ez zen, ez horixe, gurutzatuek alde egin zutenean toki hartatik bertatik entzun ahal izan zuen ahots alaien alaraua bezalakoa. Jon Alonso

Andrearen eskutik aldapa baten gainera igo, eta **almena** antzeko zulo batetik antzeman nion arratsaldeari itsasora abailtzen ari zela, Golden Gate aldera. Javi Cillero

Beste belar asko ere zabaltzen da harresian barna, asunekin eta mitxoletekin nahasturik, eta beren berdetasunarekin eta beren lore txiki soilen konstelazioekin apaintzen dituzte **almenak**, gezi-leihoak eta matakanak. Koro Navarro

Omskeko goi auzoa gotorleku antzekoa bihurtu zuten, etxe eta elizetako gain guztietan tiro egiteko **almenak** egokituz. Karlos Zabala

Iradokizunak aintzat hartuz, besteak beste, dorrearen **almenak** berregin zituen Stephenek. Xabier Olarra

Zabaltzak, **almenak** eta alkazarreko erronda-bideak, denak daude mairu ilun eta bizardunez beterik, zemai-keinuak egiten dituzte, baina isilik daude. Jon Alonso

Hemendik ez da itsasoa ikusten; burdinazko **almenak** dituzten gazteluen adinako ontziek estaltzen dute bestela itsasadar osora zabaldu behar zuen ikusmira, eta garabi erraldoiek betetzen zerua. Pako Aristi

Eguerdia zen, eta almuedanoak **almenetako** balkoietara igo ziren sinestunak otoitz egitera deitzera, hiria setitua izanagatik eta gerra-hotsetan sarturik egonagatik ez baitzitzaion utziko federaren erritoak betetzeari. Jon Alonso

Bastizetatik eta estalpe beteetatik bidaltzen gintuzten; dorrean eta **almenetan** traba ginen; debeku genuen lubakietara jalgitzea; patioan estu genbiltzan, lau murruen artean itoak, eta hatsa hartzeko nora jorik ez. Aingeru Epaltza

Kulebrinak armategitik atera eta **almenetara** eraman. Aingeru Epaltza

Almenetatik kulebrinen eta kanoien ahoak ageri ziren, erraldoi baten begi beltz ugariak iduri. Aingeru Epaltza

Entzuten duzuna mairuen oihuak dira, **almenetatik** mehatxuka ari dira. Jon Alonso

---

almenadun *iz* almenak dituena.

Harresi **almenadunetan** ez zegoen bizitza-seinalerik. Agustin Otsoa

---

almendra 1 *iz* almendrondoaren fruitua eta bereziki barneko hazia, jateko oso ona.

Almendrondoek urtero-urtero izaten zituzten **almendrak**, eta Nunuk haiek isilean eta nolabaiteko misterioz saltzen zituen. Ander Irizar

Beharrezkoa baldin bada, joan, hartu zorroetan lurreko fruiturik hoberenak eta eskaini oparia gizon hari: ukendu, ezti, usaingarri, mirra, intxaur eta **almendrak**, denetik pixka bat. Elizen arteko biblia

Mendian aurkitutakoa jaten zuen: mahats ale lehorrak, **almendrak**, mertxikak, pikua, arbiak; eta edan, mendi ura soilik, urregorrizko eskuez erreka garbietatik hartuz. Felipe Juaristi

"Mostaccioli" deituriko gozokia, **almendraz**, azukrez, eztiz eta beste osagai batzuez egina, PerLe 8an esaten denez. Askoren artean

Egun batean, Xeto lehengusuarekin eta beste zazpi lagunekin, hilerrira joan nintzen **almendrak** biltzera, baina ez zegoen bakar bat ere almendrondoan; hilek jango zituztela uste izateko moduan. Juan Kruz Igerabide

Ezin etsi, nonbait, ni txoko batean ikusita, **almendrak** jaten, besterik gabe. Plazan zen Zeferino barkilleroa, makilgoxoak, sagar eta azukre karameluak, erroskilak, **almendra** lehorrak, gerezi-konpota, limoi ura eta koñaka agerian saltzen, jai handietan bezala. Joxe Austin Arrieta

Biharamunean, joan zen Moises itun-etxolara eta Lebiren leinuari zegokion Aaronen makila ernemuindua ikusi zuen: ernemuindua eta loratua zegoen eta **almendra** helduak zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Biharamunean, joan zen Moises itun-etxolara eta Lebiren leinuari zegokion Aaronen makila ernamuindua ikusi zuen: ernamuindua eta loratua zegoen eta **almendra** helduak zituen. hosto-formako plater berde handi bat, zurtoin-formako eskulekuz, gainean purpura-koloreko mahaspasa eta **almendra** zuritu mordoxkak zituela. Elizen arteko biblia

Kakahueteak, **almendra** garrapiñatuak, berde zerutiarreko pistatxozko izozkiak- Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alferrak arabiarrenak bezalako **almendra**-begiak zituen, ile-kiribil beltz eta leunak, gizenkorra zen eta zintzilikarioak eta belarritakoak eraman zalea oso. Fernando Rey

"**Almendra** olio hau opari ematen dizut, masajeetarako ezin hobea da", esan zidan farmazialariak, haurra izan arren oso ongi geratu nintzela nabarmendu eta gero. Patxi Zubizarreta

Fruitu lehorrezko tarta bat erostea erabaki zuen, baina Downes's-eko fruitu lehorrezko tartak ez zuen **almendra**-geruza behar bezalakorik gainean, eta, beraz, Henry Streeteko denda batera joan zen. Irene Aldasoro

Almendra oskol barruan nola, halaxe hasi zitzaion garuna burezurraren barruan danbateko joka. Koro Navarro

Neskak, bitartean, kantuan ari ziren, buruko zapiak eta bidean bildutako **almendra** adarrak astinduz. Josu Zabaleta

Usain ona zuen, esne eta **almendra** usaina. Joxan Elosegi

Almendra itxurako begiekin begiratu dio Oiherrek, ezpainak heze eta musuak bero. Alberto Barandiaren

Haren **almendra** itxurako begietan esperantza eta kezka printzak nabari ziren, eta horrek are gehiago lasaitu zuen neska. Patxi Zubizarreta

Argimutilaren gerritik ateratzen diren sei besoetariko bakoitzak **almendra**-lore gisako hiru kopa izango ditu, beren kukulu, lore-hosto eta guzti. Elizen arteko biblia

Ez du bizarrik, begiak **almendra** kolore bizikoak ditu. Felipe Juaristi

3 irud/hed

Parte Zaharra, esaterako, **almendra** gotikoa da, berritua eta aldatua, baina **almendra** gotikoa, besterik gabe. Berria - Kultura

4 ***almendra azukregorritu*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* ik **arbendol azukregorritu**; **almendra garrapiñatu**; **azukre-almendra**.

Han, hestebeteak eta urdaiazpikoak jarri ohi dituzte sabaitik zintzilik, eta **almendra azukregorrituak**, txokolate eta karamelu lodiak bitrina batean. ETC-literatura, saiakera

Horretan ere, eskaintza askotarikoa da: txokolatea, gozokiak, etxean egindako jogurta, ogia, gazta, **almendra azukregorrituak** eta beste hainbat jaki daude eskura. ETC-prentsa

5 ***almendra garrapiñatu*** *(ETCn **31** agerraldi)* ik **arbendol garrapiñatu**; **almendra azukregorritu**; **azukre-almendra**.

Mugimendu edo soinurik falta ez dadin, kakahueteak, **almendra garrapiñatuak**, berde zerutiarreko pistatxozko izozkiak, eta itxura lehorra zuen, hondar-antzekoa zen, bidoi

gorri batean eramaten zituzten galletak iragartzen zituzten saltzaileak zeuden. Berria - Kultura

6 ***azukre-almendra*** *(ETCn **6** agerraldi)* ik **almendra azukregorritu**; **almendra garrapiñatu**.

Kukurutxoak paperezko kukurutxo meheak dira, non dendariek erakusleihoko hondakinak jartzen baitituzte: **azukre almendra** hautsiak, marron glaceetatik eroritako puskak, gozoki ontzien hondar susmagarriak. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **almendra itxurako** (4); **almendra lehorrak** (3); **almendra lore** (4); **almendra lore gisako** (4); **begiak almendra** (3); **eta almendra** (6)

---

almendro *iz* almendrondoa.

Almendroa da aurren aurrena loratzen den frutarbola. Patziku Perurena

Gizonak orduan **almendroak** ekarri zituen urrutiko Txinatik, negu hasieran loratzen diren goiztiarrak, bazter guztiak pintatzen dituztenak elurrarena baino kolore zuriago batez. Felipe Juaristi

Egunak horren esperantzan igaro zituen gizonak, pozik eta alai ikusten baitzuen eguna baino maiteago zuen emakumea bere nebekin, hizketan eta sagarrondo eta **almendroen** artetik paseatzen. Felipe Juaristi

Mugerzak dio Alacanteko **Almendroen** Zelaiko kontzentzazio eremuan eskualdekako taldeak osatu zituztela. Jokin Urain

Nik erantzun: - **Imendro** -adarra ikusten dut erneta. Elizen arteko biblia

Mendira begiratu eta elurrez estalia zegoela konturatu zen, baita zuriagoa ere bazela berak Bakuko dorretxearen ondoko mendi magalean sartutako **almendro** loreen kolorea ere. Felipe Juaristi

---

almendrondo *iz* azal iluneko eta zur gogorreko zuhaitza, hosto erorkorrak dituena, lore zuriak eta drupa obalak ematen dituena.

Mahasti, olibondo, **almendrondoak** eta, artetan, harrimuga balisatzaile bat; leku xoragarri hauetan ez dakit zer naizen, so egile ala argazkilari. Piarres Aintziart

Egun batean, Nunuk lorategiaren atzealde osoan **almendrondoak** aldatzea erabaki zuen. Ander Irizar

Hilerrira joan nintzen almendrak biltzera, baina ez zegoen bakar bat ere **almendrondoan**; hilek jango zituztela uste izateko moduan. Juan Kruz Igerabide

Almendrondoek urtero-urtero izaten zituzten almendrak, eta Nunuk haiek isilean eta nolabaiteko misterioz saltzen zituen. Ander Irizar

Bidean, han hemen, landa zabal amaigabeen ezpondetan, **almendrondo** loratuek sorgindu naute. Patziku Perurena

Almendrondo loratuz betea zegoen zelaia. Jokin Urain

---

almete *iz*

Almetea: antzinako armaduraren zati bat, burua babesten zuena. Patxi Ezkiaga

Berorrek zinez agindu baitzuen hitz hori beteko zuela, ahalik-eta buruko **almetea** kendu arte Malandrinori edo delako mairu horri, izenik ez dut gogoan. Patxi Ezkiaga

---

almez *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi) iz* enbor zuzen leuna eta lantza itxurako hosto berde erorkor eta txandakatuak dituen zuhaitza *(Celtis australis)*.

Almeza edo basaka ("Celtis australis") "Cannabaceae" familiako zuhaixka da, Mediterraneoan jatorria duena. Landare apaingarri moduan erabiltzen dute. Izena arabierazko "al máys" (euskaraz: zuhaitz) hitzetik dator. Zuhaitz handiak izaten dira, pagoaren antzeko azala dutenak, fruitu beltzaxkak eta jateko onak ematen dituztenak. ETC-entziklopedia

1984ean eraiki zen, guztira 27.000 metro karratuko azalera du, eta bere lursailetan indietako gaztainondoak, astigarrak, lizarrak, xarmak, **almezak** eta beste hainbat motatako zuhaitzak daude. ETC-entziklopedia

Adibidez, Santa Barbaran batetik, Intxaurrondo etxetik gertu dagoen **almeza** edo basaka baten adaburua moztu egingo dute oso . ETC-prentsa

Celtis occidentalis L. **almez** landarean, seneszentziak horitutako hostoetan, psilidoen kailuek orban berdeak sortzen dituzte, eta, aldi berean, zitokinina-edukia nabarmen handitzen da bestela horiak liratekeen hosto seneszenteen ehun hondatuan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

almibar **1** *iz* azukrea ur epeletan disolbatuz lortzen den gaia, gozogintzan erabiltzen dena.

Gazta gozoa **almibarrarekin** noiz ekarriko ziguten zain geunden. Jon Muñoz

-Almibarretako melokotoiak, besteak ez -zehaztu zuen-. Ander Irizar

Almibarrak fruta difuminatzen duen bezala difuminatu zion haizeak burmuina. Unai Elorriaga

2 irud/hed

-Beraz, nire polita -esan zuen Kako-okerrek, **almibar** ahotsez-, zure umeak oholetik paseatzen ikusiko dituzu. Julen Gabiria

---

almidoi *iz* eskuarki laboreen hazietan ale txikien itxuran aurkitzen den gai zuria, ur berotan ehunak zurruntzeko erabiltzen den orea osatzen duena.

Zelulosa **almidoi** bihurtzeko gaitasuna duen bakterio-populazio bat. Irene Aldasoro

Fotosintesiaren bitartez, karbohidrato bihurtzen dituzte landareek -azukre eta **almidoi**, alegia- ura, karbono dioxidoa eta eguzkiaren argia. Irene Aldasoro

Zuritasuna ez da existitzen, gauza zuriak baizik: irina, **almidoia**, neguko eperraren lumak, elur erori berria. Josetxo Azkona

Gehienetan hiru erregai nagusi erabiltzen ditugu: karbohidratoa (azukrea eta **almidoia** duten janariak), gantza eta proteina. Irene Aldasoro

Baina konturatu nauk hik ere badakiala lurprabak egositako urari **almidoia** kentzen...! Koldo Izagirre

Almidoi disolbaezin bat da glukogenoa. Irene Aldasoro

Gorbata kentzen ikusi zintudan, / **almidoiz** plantxatutako alkandora askatzen, / lotsatzen zaituen orbaina ezkutatzen. Jasone Osoro

-Tira, Gabriel -esan zuen izeba Katek, barrez-, **almidoi** -errota zuen. Irene Aldasoro

-Bueno, kola zela edo **almidoia** zela -esan zuen Gabrielek-, jaun zahar horrek zaldi bat zuen, Johnny izenekoa. Irene Aldasoro

Txukun jantzirik, alkandoraren paparrekoa **almidoiz** ondo gogorturik. Jose Morales

Lanbroak hartzen zuen dena, ez zen **almidoi** aire bat baino ikusten, flotatu egin behar zela bertan ematen zuen. Koldo Izagirre

---

almidoitu, almidoi(tu), almidoitzen *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi; orobat **almidoiztatu** ETCn **52** agerraldi eta **almidonatu** ETCn **6** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **almidoitu** agertzen da)* **1** du *ad* ehunak almidoiarekin zurrundu. ik

almidoiztatu; **almidonatu**.

Pazko astelehenean, Joseph Gimmertoneko feriara joan zen ganadu batzuekin, eta, arratsaldean, ni sukaldean ari nintzen arropa zuria **almidoitu** eta lisatzen. ETC-literatura, saiakera

Erizain uniforme zuriak hain zegoen **almidoituta** ezen karrax egiten baitzuen korridorean barrena presaka zebilenean. ETC-literatura, saiakera

2 (era burutua izenondo gisa)

Kanbraiko oihal **almidoituaren** zatiak esanahi argia behar luke. ETC-literatura, saiakera

Weierstrassen aurpegi zurian pentsatu zuen, Clarak buruaren azpian goiz hartan bertan jarriko zizkion buruko **almidoituak** bezain zuri. ETC-literatura, saiakera

Emakume bat agertu zen berehala -zerbitzaria, zer esanik ez-, aurpegiera hotza, eskumutur gogortuak eta modaz pasatako kapela jaso **almidoitu** zuria soinean. ETC-literatura, saiakera

---

almidoiztatu, almodoizta(tu), almidoiztatzen *(ETCn **52** agerraldi; orobat **almidonatu** ETCn **6** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **almidoitu** agertzen da, corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)* **1** du *ad* ehunak almidoiarekin zurrundu. ik **almidonatu**; **almidoitu**.

Non ote zeuden behialako mahaialdi luze oparo haiek, familiako guztiak argimutil handien argitasunean, portzelanazko zerbitzuz, zilarrezko tresneriaz eta **almidoiztaturiko** mahai-zapiez hartu ohi zirenak? Joxan Elosegi

Ez iezadazue arren eska oihal baliotsu horiek eskuz garbitzeko, prentsan lisatzeko, **almidoiztatzeko** , urratuak puntukatzeko, zarrastadak pasaratzeko. Joxan Elosegi

2 (era burutua izenondo gisa)

Ehun zurizko lepo **almidoiztatua** zeraman samaren jiran, mahuka zuri batzuk igotzen zitzaizkion ukondoetaraino, mantal zuri batek oinetakoen puntak ezkutatzen zizkion. Karlos Zabala

Gona, txit laburra, txit **almidoiztatua** , dantzari baten gona bezala harrotzen zen. Karlos Zabala

Barneko azala distira berde ilunekoa da, urrezko izarrekin; oihal astun **almidoiztatua** dirudi. Monika Etxebarria

Mozkortuta zaude ala? -galdetu zuen, serio eta urduri, eta alkandoraren lepo **almidoiztatu** garaira luzatu zuen besoa. Anton Garikano

---

almidonatu, almidona(tu), almidonatzen *(ETCn **6** agerraldi; orobat **almidoiztatu** ETCn **52** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **almidoitu** agertzen da, corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)* **1** du *ad* ehunak almidoiarekin zurrundu. ik **almidoiztatu**; **almidonatu**.

Haren soineko beltza lisatu huen, lepoa eta mahuka-muturrak **almidonatuz** haren eskuak berri ageri zitezen, bular hilaren gainean gurutzaturik; bular zahar maitekor harexen gainean lo egina bainintzen garai batean eta harexek eman baitzidan jaten eta bere bihotz-pilpirez urrumatu nire ametsak. Juan Garzia

2 (era burutua izenondo gisa)

Lepoko zuri **almidonatuari** esker gorputz txikiak lortzen duen garaiera morala. Anjel Lertxundi

---

alminar *iz* mezkitari itsatsiriko dorrea, nondik almuedanoak otoitzera deitzen baitu.

AEguzkia atera eta **alminar** baten pareraino goratu zen. Fernando Rey

Gau luzeen ondoren, eguzkia Ararateko mendi-mazelaren atzetik ateratzen da, sutan den **alminar** ezin gorriago baten gisan. Imuedanoa sinestunak otoitz egitera deitzeko **alminarrera** igo zen goiz bare hartan. Fernando Rey

Oraindik erabateko fedearen garaian bizi da, almuedanoa gizon guztietan azkena izango litzateke baldin eta **alminarrera** bihotza aratz eta eskuak garbi izan gabe igoko balitz. Jon Alonso

Egun edo gaueko beste edozein ordutan ez zuen ikusezinaren aurreko etsipen hura sumatzen, egunsentiko une honetan bakarrik, une honetantxe, fededunak lehen otoitzera deitzeko **alminarreko** eskailera igotzera joaten zen honetan. Jon Alonso

Alminarretako kareleko harrian Mekarantz seinalatzen duten seinaleak. Jon Alonso

---

almirant ik **almirante**.

---

almirante *(orobat **almirant** g.er.) iz* itsas armadako buruzagi gorena.

Almirantea , galako uniformean sarturik -atorra zuri botoiduna, lebita urdin argia, galtza zuriak belaunetaraino eta han, lokarriz lotuak, galtzerdi zuriak eta oinetan zapata puntadunak-, ohi baino piztuxeago zebilen. Felipe Juaristi

Haize bortitzaren goren indarrak itsas lautadan untzi-teria bateko **almirantea** , bere legio suhar eta elefanteekin batera, ekortzen duenean. Xabier Amuriza

Errusiako iparraldeko gerra ontzidiaren barku nagusia den 'Piotr Veliki' (Pedro Handia) ontzi nuklearra "edonoiz lehertzeko" arriskua balitekeela aditzerat eman zuen atzo Itsas Armadako buruzagi nagusi Vladimir Kuroiedov **almiranteak** . Berria - Mundua

Armada Txit Zorioneko **almiranteak** agindu bezala, goizalde hartan kanoi batek egin zuen oilarrarena. Edorta Jimenez

Espainiar kapitaina edo holandar filibusteroa batzuetan, Royale Navy-ko **almirantea** edo bretainiar kortsarioa bestetan. Jon Muñoz

Almirantez jantzita nahi omen zuen jauna hartu, huraxe izaki gaztaroko haren ilusio bakarra. Karlos Linazasoro

Mezularia **almirantearen** aurrera eraman zuten, eta gutun batzuk zeramatzala aitortzea beste erremediorik ez zuen izan. Jon Alonso

Kosme Damian Txurruka eta Nelson **almirantea** aipatzen dira itsas borroka hartako heroi nagusi bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gustavok gizon-emakumeen pausoak baino gehiago lord Brandy **almirantearen** ibilerak zaintzen zituen, edaritegitik dantza aretoko balkoira baitzebilen joan-etorrian. Felipe Juaristi

Karrikara atera zenean ez zuen bere burua jeneral gisa edo **almirante** gisa ikusten, ezta soldadu gisa ere, baizik eta berea zena eskuratu nahi duen gizon heldu eta haserretuaren gisa. Felipe Juaristi

Han ageri zen Francisco Franco **almirantez** , mikro baten aitzinean mintzo, paperik gabe, esatariak esaten zizkigunak esaten: [...]. Koldo Izagirre

Errusiar **almirantea** , haren emaztea, laguna eta Joanes oteen arteko bidexkan egon ziren, mutu mutua. Autoz heldu zen, eta ez al zaizu bitxia egiten Franco, udan beti **almirante** jantzian ibiltzen zen hura, lehorrez etortzea portu batera? Eneko Bidegain

---

almirantego *(corpusean ez dago; ETCn **65** agerraldi) iz* almirantearen maila.

1970era arte Probate, Divorce and Almiralty Division (testamentuen legalizazioa, dibortzioa eta **almirantego** saila) deitua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Botere judiziala hedatu egiten da konstituzio honetatik eratortzen diren kasu guztietara, legezko eta ekitatezkoetara, Estatu Batuetako legeetara, [...] **almirantego** eta itsas jurisdikziora; Estatu Batuak alderdi diren gatazketara [...]. ETC-zientzia, zuzenbidea

Honako sei kontseilu hauek: estatu-kontseilua, erlijio- eta irakaskuntza-kontseilua, lege-kontseilua, gerra-kontseilua eta **almirantego** -kontseilua, bost lagun kontseilu bakoitzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ozeano Barearen mendebaldean dago. Bismarck uhartediaren zati bat, (**Almirantegoaren** uharteak, Mussau uharteak eta Irlanda Berria), Salomon itsasoaren ipar-ekialdea, Bismarck uharteetako itsasoaren iparraldea eta Ozeano Barearen zati txiki bat hartzen ditu. ETC-entziklopedia

2011. urtean estatu bat jarri zuten **Almirantego** Arkua (Admiralty Arch)-n, Ingalaterrako hiriburuan. ETC-entziklopedia

Honek argudiatzen zuenez, "Endurance" ontzia behin ondoratu ondoren, jada **almirantego** legeak jada indargabe gelditu ziren, hortaz, ez zegoen Shackletonen aginduak betezera derrigortua. ETC-entziklopedia

---

almiranteorde *iz* itsas armadako almirantearen hurrengo ofiziala.

Hizketan Rafael Huizi Clavier **almiranteordea** eta Fernando Ochoa Antich jenerala ziren. Pako Aristi

Vladimir Kuroiedov eta Igor Kassatonov almiranteen arteko ezinikusia litzateke auzi honen atzean eta 'Piotr Veliki'-rekiko lotura da ontzi horren komandantea Vladimir Kassatonov **almiranteordea** dela, hain zuzen ere Igor Kassatonoven iloba. Berria - Mundua

---

almitz *iz* belar-landarea, aldizkako hosto luzeak eta lore ikusgarriak dituena.

Urte askoan zakurrei begira egon eta ahoratzen duten belar bakarra **almitza** dela esan behar. Gotzon Garate

Beren adatsa, zatika hiru-bihurtua eta zatika lotu gabea; hain horiak ileak, eguzkiari berari lehian ekin ziezaioketen noski; eta gainean, buru-ttonttorrean, jasminez, arrosez, **almitzez** eta aihen-zuriz egindako apain buruntzak. Patxi Ezkiaga

Kafetera berdearen zarata ere entzun dezake, bai: **almitzaren** erdian doan sugearen irristada antzeko hotsa. Pako Aristi

---

almizkle *iz* musketa.

Handik itzuleran, **almizklea**, aloea, alkanforra, kanela, eta ekialdeko beste zenbait jenero hartuko zituzten honantz ekartzeko. Patziku Perurena

-Zuhaitz horren azpian, **almizklez** urrindutako ur ontzi bat dagoela, eta beste ontzi bat bete ardo. Patxi Zubizarreta

---

almoada ik **almohada**.

---

almohada *(orobat **almuada** g.er.) iz* burdia, burkoa.

Gezurra, berak kendu dit nire **almohada**. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere matrailezurraren keinua nabarituko zenuen telefonoz bestalde eta nola urduri **almohada** bat harrotu eta lisatzen saiatzen zen, zerbait egiteagatik. Harkaitz Cano

Mikaela ohean ezarrita zegoen: irrati txikia piztuta, bizkarpean **almohada** eta kojina, bufandarekin eta jertse lodi berde ilun batekin jantzita, eskuak edredoiaren azpian. Pablo Sastre

Bizkarra **almohadan** jarrita, Jean Claudek bi zigarro hartzen ditu Letiziaren paketetik, ahora eraman eta piztu egiten ditu, ondoren bat Letiziari emateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez gintiztean **almohada**-kolpeka bota; barrez hartu gintiztean, gure asmoen berri izan balute bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zuen planta ederra ekarri: aurpegian **almuadaren** markak, zapatilak solte eta brageta zabalik. Berria - Kultura

---

almohade *(corpusean ez dago; ETCn **287** agerraldi) iz/izond* XII. mendean Afrikako ipar-mendebaldean sortutako dinastia; dinastia horri dagokiona.

Horrelako bidaietan ordezko zaldiak eramaten dira -ikastaldiko lehen urratsean jakin zuen Katelinak Nafarroaren inguruko erreinuen arteko oreka oso hauskorra zela, ze hegoaldean **almohadeak** omen zeuden, Abu Yaqub Yusuf al-Mansur buru zutela. ETC-literatura, saiakera

Torrecerako mahastiak 2003an landatutakoak dira, eta 26 hektareako eremua hartzen dute, denak ere mendixka baten magalean kokatuta, tontorrean **almohadeek** eraikitako erromatar dorre bat agertzen delarik. ETC-prentsa

Aragoiko Koroako Jakue I.a erregearen tropek Valentzia hiria konkistatu zuten 1238ko irailaren 28an, **almohadeen** Valentziako taifako hiriburua. ETC-prentsa

Bestalde, eslaviarrek alemanei ez zieten hain gogor egin nola egin baitzieten Ebro eta Guadalquivirreko haranetako hiri andalustar indartsuek, almoravide eta **almohadeen** laguntzaz, Espainiako kristauei. ETC-zientzia, zuzenbidea

Almohadeek 1236an boterea lortu zutenean, Tilimsengo Erresumak abdaluadiek gobernaturiko estatu independente bilakatu zen. ETC-entziklopedia

Almohade intoleranteen inbasioa 1148an hasi zenean, Ibn Daud, judu askok bezala, Maimonides gaztearen familia barne, hiritik ihes egin zuen eta Toledo kristauan babesleku hartu zen. ETC-entziklopedia

Lorategiak XII. mendean sortu ziren, **almohade** dinastiako Abd al-Muminen agindupean. ETC-entziklopedia

Badajoz **almohadeei** kendu ostean, 1184an almorabideen aurka egin zuen. ETC-entziklopedia

---

almohadilla *iz* kuxina.

Eltzea zekarrela etorri zen Larraitz; hura norvegiar kutxan sartu eta **almohadilla** eta taparekin ongi itxi zuen. Pablo Sastre

---

almondiga ik **albondiga**.

---

almorabide *(corpusean ez dago; ETCn **134** agerraldi) iz/izond* XI. mendean Afrikako ipar-mendebaldean sortutako inperioko dinastia; dinastia horri dagokiona.

Almorabideak Saharan sortutako monje-soldaduak dira. **Almorabideek** Islamaren interpretazio fundamentalista erabili zuten XI eta XII. mendeetan Mauritania, Mendebaldeko Sahara, Maroko eta Iberiar penintsulako hegoaldea kontrolatzen zuten inperioa izateko. ETC-entziklopedia

Almorabideak borrokatu zituen eta 1128an Ibn Tumart ordezkatu zuen. ETC-entziklopedia

Abd Al-Mumin emirraren aginduz 1147an eraiki zen aurreko meskita baten tokian altxatzen da, Ibn Tumertek eragindako suntsipena konpontzeko saiakera baten, eraikin **almorabideen** suntsipenera mugatu zena. ETC-entziklopedia

Almohadeek eta **almorabideek** estatuak antolatu zituzten Maroko, Aljeria eta Tunisia inguruan. ETC-entziklopedia

Euskaldunek eta berbereek mundu guziaren historia dute errekuperatzeko, ez Nabarrako erresumaren edo **almorabideen** handikerien partea. ETC-prentsa

Ghanako Inperioak gainbehera egin zuen **almorabideen** etengabeko inbasioen eraginez. ETC-prentsa

---

almorrana *(orobat **amorrana**) iz* ondestearen azken odol zainetan ateratzen den barize dilatazioa.

Geu gara bizkarreko minez oheratzen garenak; geu gara hankak eta eskuak puztuta batetik bestera gure gerri berria paseatzera behartuta gaudenak; geuri sortzen zaizkigu barizeak eta **almorranak**. Arantxa Iturbe

Gure ama zenak, berriz, esanda ere igoal da ta, **amorranak** sendatzeko erabiltzen zittun holakoak. Patziku Perurena

---

almortzu *iz* gosaria; hamaiketakoa.

Erosketak egitera joango naiz, betiko tabernan **almortzua** hartzeari paso eginda. Sonia Gonzalez

Almortzuaren ordua zen, desordua eta desordena. Lutxo Egia

Pentsatu behar dugu osterantzeko egitekoak nola bideratu, baina hobe hausnarketok **almortzu** on baten inguruan egitea. Josu Landa

Ba al dago **almortzurik** zorrorako? Jon Maia

---

almuada ik **almohada**.

---

almuedano *iz* mezkitaren alminarretik oroitz egitera deitzen dituen pertsona.

Harria erromatarren hilarri zahar bat da, Mogueimek begiratzen du baina ez da higitzen, orduantxe haizeak **almuedano** baten oihu zorrotza dakar. Jon Alonso

Eskailera kiribila zen, eta igotzeko nekeza, are eta gehiago dagoeneko zaharra zen **almuedano** honentzat, beharrik ez zizkioten begiak estali behar, norietako mandoei bezala, zorabia ez daitezen. Jon Alonso

Almuedanoa sinestunak otoitz egitera deitzeko alminarrera igo zen goiz bare hartan. Jon Alonso

Muinoen artean hots egiten zuten ohiko ahotsak entzun ziren, Alaren fededunei otoitz egitera deitzen zieten **almuedanoak** ziren. Jon Alonso

Oraindik erabateko fedearen garaian bizi da, **almuedanoa** gizon guztietan azkena izango litzateke baldin eta alminarrera bihotza aratz eta eskuak garbi izan gabe igoko balitz. Jon Alonso

Almuedanoak eskua mugitu zuen karel zirkularrean zehar, Meka hiri santuaren norabidea seinalatzen zuen marka, harrian zizelatua, aurkitu arte. Jon Alonso

Orduan, huraxe balitz ordua, **almuedanoaren** ahotsa zeru zuritik jaitsiko zen, Alarengandik zuzenean. Jon Alonso

---

almute *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi) iz* edukiera-neurria, ia bi litro eta erdiren baliokidea.

Juan Fortuñoren emazte Romeak Legazpean sail bat zeukan eta **almute** bat ordaintzen zuen horregatik. ETC-prentsa

Eta askotan, kaxa berean baina beste aldean, lakari erdia ere neur zitekeen (**almutea**). ETC-prentsa

Giza kateak eta **almuteak** oinarri dituzten dantzak dira, eta kaxa dantzarien urratsak neurtzen dituen unitatea da. ETC-prentsa

Musikak, etenik gabe, **almute**-dantzari ematen dio bide. ETC-prentsa

Donostiako Argia dantza taldekoek interpretatu zituzten **almute** dantzak horretan, eta filmaren gainontzeko sekuentzietan ere haiek edo haien ikuskizunetan aritzen direnek parte hartuko dute. ETC-prentsa

Gero, dolarean (Igartubeitin) sagarrak bilduta **almute**-dantza eta zortzikoak egiten dituzte inprobisazioan gizonek. ETC-entziklopedia

---

alo *interj ipar* telefonoz hitz egiten hastean erabiltzen den hitza.

Alo -esan nuen-, pizza bat Grands-Arlequins kaiko 7. zenbakira. Joxan Elosegi

-Alo? -eskatu zuen Mikelek. Ramuntxo Etxeberri

-Alo? -errepikatu zion Mikelek. Ramuntxo Etxeberri

-Alo, Txomin ez joan eta ere, zer inporta dik ez duk lehen aldia izanen. Eneko Bidegain

-Alo haurra, biziki ona da eta -segitu nuen larderiatsuago, baina debaldetan- janen duxu eta kito! Itxaro Borda

Apezak bederen etsenpluzkoak izan daitezen, **alo**! Piarres Aintziart

---

alodial *izond* jabetzez mintzatuz, zerga zamarik ez duena.

Gizon libre, batetik onura edo feudorik ez izan, eta bestetik glebaren mendekotasunari lotu gabe zeudenei esaten zitzaien; hauek zeuzkaten lurrei, berriz, lur **alodialak** esaten zitzaien. Iñaki Iñurrieta

---

alodio *iz* ondasun alodiala.

Nola **alodioak** feudo bihurtu ziren. Iñaki Iñurrieta

Beren jabetzak ken ez ziezaieten, usadio hori asmatu zela: beren **alodioa** erregeari ematea, harengandik feudo gisa hartzea eta beren oinordekoei ematea. Iñaki Iñurrieta

Lehen dinastian ez zuten halakorik ezagutzen: koroa anaien artean banatzen zen, **alodioak** berdin zatitzen ziren, eta feudoak, mugigarriak zein bizi artekoak, ez ziren oinordekotza-gai, ezin ziren banatu. Iñaki Iñurrieta

Horrek hauxe besterik ez du frogatzen, garai hartan onura gehienak bizi artekoak zirela eta, beraz, gehiago arduratzen zirela **alodioez** onurez baino. Iñaki Iñurrieta

---

aloe *iz* tropikoko landare iraunkorra, zuku lodi eta mikatzeko hosto luze haragitsuak dituena; hosto horien zukua, farmazian erabiltzen dena.

Ibar luze-zabalak dirudite, / ibai ondoko baratzak, / Jaunak ur-ertzean landaturiko / **aloe** eta zedroak. Jose Antonio Mujika

Logela mirra, **aloe** eta kanelaz lurrindu. Elizen arteko biblia

Handik itzuleran, almizklea, **aloea**, alkanforra, kanela, eta ekialdeko beste zenbait jenero hartuko zituzten honantz ekartzeko. Patziku Perurena

Mirra, **aloe** eta kanela usaizkoak zure jantziak, harpa-soinua marfilezko jauregietan zure alaigarri. Elizen arteko biblia

Bitamina pilula miragarriak aipatuko zizkion batek, **aloe** landarearen mirakulu sinesgaitzak goraipatuko beste batek, ginseng eta erregina-jele anpuluak oparituko hirugarren batek. Imanol Zurutuza

Abiatu aurretik, nire salgai batzuk erresuma hartako beste batzuekin trukatu nituen, hala nola **aloe** egurra, sandaloa, alkanforra eta jengibrea. Patxi Zubizarreta

Etorri zen Nikodemo ere -behin batean gauez Jesus ikustera joan zen hura- hogeita hamarren bat kiloko mirra- eta **aloe**-nahastura zekarrela. Elizen arteko biblia

Landare askok gai toxikoak xurgatzeko ahalmena dute, besteak beste, potoak, xingolak, drakaenak eta **aloe** verak. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aloe eta (3); **eta aloe** (3)

---

alofoniko *izond* alofonoarena, alofonoari dagokiona.

Hobeto esan, irristaritasuna **alofonikoa** da. Lourdes Oñederra

Hots horien tasun fonetiko guztiak ez dira nahita egiten; ez dira, gainera, hautematen hizketa entzuterakoan ere: tasun **alofonikoak** dira. Lourdes Oñederra

Txistukarien ahostuntasuna **alofonikoa** da euskaraz. Lourdes Oñederra

Bestela esan, bokal artean ez dugu bereizten *b*ren eta ß ren arteko desberdintasuna: desberdintasun hori **alofonikoa** da. Lourdes Oñederra

Berdin b / ß bikotean bigarrenaren jarraitutasuna da ingurune jarraituagatik esplikatzen dena eta, horregatik, bigarrena hartzen da **alofonikotzat** . Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alofonikoa da (5)

---

alofonikoki *iz* era alofonikoan.

ALOFONIKOKI bakarrik gertatzen dira igurzkari AHOSTUNAK. Lourdes Oñederra

Gainerako trabariak ahoskabe dira eta **ALOFONIKOKI** bakarrik izan daitezke ahostun ingurune jakin batzuetan. Lourdes Oñederra

---

alofono *iz* fonema baten berezko hotsa, hitz katean duen kokapenaren arabera alda daitekeena.

Alofono dira hiztun arruntak hautematen ez dituen hots aldaerak, berak zein bestek ahoskatu. Lourdes Oñederra

Alofono izenak informazio osoagoa ematen du aldaera izenak baino. Lourdes Oñederra

Irristariak **ALOFONOAK** dira euskaraz. Lourdes Oñederra

Hots beraren **alofonoen** artean oinarrizkoa zein den ez da arbitrarioa. Lourdes Oñederra

Garbi izan behar da hotsaren aldaera kontaezin guztiak direla berez **alofono** . Lourdes Oñederra

Sailkatuta eta deskribatuta dauden aldaera nagusiak hartzen dira, oro har, **alofonotzat** eta transkripzio fonetikoan IKUR ezberdinen bidez jasotzen. Lourdes Oñederra

---

aloger *(orobat **alogera**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **aloger** agertzen da)* **1** *iz* alokairua, soldata.

Oi, **aloger** eta sari da hori, ez mendeku. Juan Garzia

Baina heure **alogeratik** -bere burua zuzendu zuen-, otorduetakoak bezala. Edorta Jimenez

2 *iz* alokairua, errenta.

Prezioen gorakada, ordaindu ezinezko **alogerak** : etxebizitzaren krisia arazo politiko larria bihurtu da Euskal Herrian. Iñigo Aranbarri

Film bakoitzaren **alogerarekin** bost kartel bidaltzen zituen banatzaileak, baina zeluloidearen kaxekin batera ostera itzuli beharrekoak. Josu Landa

alog *(corpusean **alogeran** soilik) adlag* errentan.

Gazteleraz hor dira, konparazio batera, simon, zalgurdia esateko, behinola Madrilen horrelakoak **alogeran** uzten zituen Simon bat izan zela-eta. Iñigo Aranbarri

Emakumeak ziren, batez ere, bainuetxean astotxoak **alogeran** hartzen zizkietenak inguruetako baserritarrei, mendialdiak egiteko ermitetara eta iturburuetara. Koldo Izagirre

Goiko solairuko gela handia Goldschmidt izeneko bati **alogeran** utzia genion. Josu Zabaleta

Egun hartan, Eufrates ibaiaz bestaldean **alogeran** harturiko labanaz moztuko dizue Jaunak buruko ilea, kenduko bizarra eta izterrondoko ilea. Elizen arteko biblia

Alogeran dauzazuen bigarren estaia, Martxeli zegokiok; eta goikoa bi anai-arrebei. Txillardegi

alog *(corpusean **alogerazko** soilik) izlag*

Errealitateak simetriak eta anakronismo arinak maite ditu; Dahlmann **alogerazko** kotxe batean etorria zen eritetxera, eta orain **alogerazko** kotxe batek zeraman Constitución-era. Juan Garzia

Dahlmann-ek, hara eraman zituen **alogerazko** kotxean, pentsatu zuen berarena ez zen gela batean, azkenean, lo egin ahal izango zuela. Juan Garzia

---

alogeratu, alogera(tu), alogeratzen du *ad* alokatu.

Inguruko herri guztietatik **alogeratu** ziren omnibusak hona etortzeko, zure exekuziora tenoreko iritsi gura zutenendako tren berezi batek urten zuen Donostiatik goizean goiz. Koldo Izagirre

Zaila zen emakumezko batek **alogeratzea** asto bat, baserritarren baten laguntza barik. Koldo Izagirre

Eta bat **alogeratu** dut. Txillardegi

---

alogereko *(orobat **alogerako**)* **1** *iz* soldatapekoa.

Lurgintzan lan egiten duen **alogerako** mutil batek egunero 15 rupia irabazten ditu. Gotzon Garate

Halako arrandiaz eta marrumaz jarduten, non pentsatu baitut naturaren **alogereko** beharginen batzuek eginak ote zituzten jendeak, eta ondo asmatu ez, hain dorpeki baitzuten antzeratu gizakia. Juan Garzia

---

alogia *iz* logikarik ez duen gauza.

Zorakeria da, "justuagoak" garelako zeruak lagundu egingo digula itxarotea; eta erokeria da (**alogia** !) inor, espartarrak-edo, ohorearengatik mugituko direnik, herri txiki bati laguntzeko. Joxe Azurmendi

---

alogiko *izond* logikarik ez duena.

Norena den esan gabe ibili naiz, bati eta besteari -euskararen funtzionarioak asko- galdezka, ea erlatiboa horrela egiteari zer irizten dioten, onartzen al dioten idazleari bekatu **alogikoa** . Iñigo Aranbarri

---

alografo *(corpusean ez dago; ETCn **49** agerraldi) izond* egilea ez den norbaitek egindako itzulpena.

Itzulpen **alografoetan** eragina izaten du aldagai horrek, eta autoitzulpenetan izango duen eragina handiagoa izango dela pentsa dezakegu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Itzulpen **alografoei** buruz ere inoiz termino horietan mintzo direla jaso dugu tesian, batez ere autorearekin nolabaiteko lankidetzan egindako itzulpena bada, gurean ohikoa dena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tesian aztertu dituen gaien artean, autoitzulpenaren eta itzulpen **alografoaren** -egilea ez den norbaitek egindako itzulpenaren- arteko aldea dago. ETC-prentsa

---

aloiamendu ik **aloimendu**.

---

aloiatu ik **aloitu**.

---

aloimendu *(orobat **aloiamendu** g.er.) iz ipar* ostatalekua.

Batek beste **aloiamendu** bat xekatuko du, beste biek diren tokian segituko dute bainan arrandaren parte bat beren sakelatik ordainduz. Herria

---

aloipen *iz* ostatatzea.

Dibortzioa egiten delarik, senarrak haurren **aloipen**-saria zor izanen dio bere emazteari, non ez dion etxean berean bizitzen segitzeko lehentasuna berari zor. Herria

---

aloitu, aloi(tu), aloitzen *(orobat **aloiatu** g.er.)* da/du *ad ipar* ostatatu.

Hor gaindi, zonbait mila jende behar ukan dituzte ahal bezala **aloitu**, jende gaixo horien etxeak arrunt urek hartuak izanez. Herria

Bi gisetara erabiltzen du dirutza hori: mailegatuz interes apalean bizitegiak eraikitzen dituzten familiei; edo berak eraikitzen dituen egoitzetan familiak **aloituz**. Herria

Ba du alabaina hilabeteak eta hilabeteak entzuten dugula lurra eskas dela gutarteko jendearen eta familia gazteen **aloitzeko**; lurra eta bizitegiak odola bezain kario, hemen gaindiko jendeak ez baititu eskuratzen ahal. Herria

Bastizaren jabeak, Baiona barneko farmazia ezagutu bat kudeatu ondoan, ez du erreparakuntza egiteko xederik, eta ez du kanporatuen ber **aloitzeko** deusik egin nahi. Herria

---

aloitzale *iz ipar* ostatatzailea.

Bakantzatiarren **aloitzale** elkarteak (Gites) ekar-araziak zituen, hunen buru dugularik hemen Agnes Gorostiague baigorriar anderea, goragoko arduradunaren ondoan. Herria

---

alojatu, aloja(tu), alojatzen du *ad* ostatatu.

Ber urtean Sainte Barbe kolegioan **alojatzera** horra zaie ikasle berri bat, haatik ez gaztea: Iñigo Loiolakoa (Tartas sohütar idazlearen arabera" Lohiolakoa"). Herria

---

alokagai *izlag* alokatzeko eran.

Hara non ikusten duen leiho batean ezarritako afixa batean: "Gela zatia **alokagai"**. Pablo Sastre

---

alokaidatu, alokaida(tu), alokaidatzen *ipar* da/du *ad* alokatu.

Bada urte bat egongia bat **alokaidatzen** düala Maulen. Herria

Urte ondarreko azken aste hontan, Iratiko etxola güziak **alokaidatü** dira. Herria

Etxebizitzak nola hobe dira **alokaidatü**, opor denborako edo urte osorako? Herria

Etxe bat **alokaidatzeko** txerkatzen züan maiestür gazte bat horra zen lagün baten etxekoen gana, horiek amañien etxea libro beitzüen. Herria

---

alokaidetiar *iz* alogereko etxean bizi den pertsona.

Herriko Etxeko sozial aferak eskutan hartzen dituen Lauqué andereak errezibitu ditu Gosse karrikako **alokaidetiar** kanporatuak aste hastapen honetan. Herria

OPHLM ez da beldur izan **alokaidetiarrei** galdatzeko lan txipietan parte har zezaten diruz. Herria

---

alokailetiar *iz ipar* maizterra.

alokailetiarren defentsa komiteak du zertarako diren erakunde publiko batek dituen benefizioak, hiritarrek ez baldin badute horien behapiderik? Herria

---

alokairi ik **alokairu**.

---

alokairu **1** *iz* lan, soldata, edo zerbitzu batengatik egunero, astero edo hilabetero hartzen den diru saria. ik**aloger**.

Zahar-etxe baten ondoan dago lokala, eta idazleek, **alokairu** gisa, literatur lantegi bat sortu zuten adinekoekin lan egin eta haien memoriak biltzeko. Anjel Lertxundi

Talde txiki eta handien esku utziko dituzte, **alokairu** baten truke. Berria - Kultura

Administratzailearen bulegoan gelditu eta, aurreraturik, hilabete bateko **alokairua** ordaindu nuen, hogeita bost dolar. Fernando Rey

Haren familia **alokairua** pagatzeko dirurik gabe geratu zen eta aldatu behar izan ziren. Pello Lizarralde

Maizterren egoeraz urrikaldurik, uko egin zion **alokairua** igotzeari, ediktu militar batek horretara ahalbidetzen bazuen ere. Patxi Zubizarreta

Egin kontu nola egon daitekeen ni bezalako emakume bat **alokairua** kobratzeko arrotz bati aurre egin beharrean. Patxi Zubizarreta

Alokairua ez kobratzeaz gainera, keroseno eta oihal kupoiak eskaini zizkion. Patxi Zubizarreta

Alokairuak gora doazela, gero eta artista gehiago bizi direla Williamsburgen, Manhattango azken zokoetatik ihesi. Harkaitz Cano

-Ez -erantzun nion, **alokairuaren** ordainagiria eman bitartean. Fernando Rey

2 (izenondoekin)

Balio horrek egoera jakin bati erantzuten dio: **alokairu** publikoko etxebizitzen gabeziari. Berria - Harian

Prezio apaleko **alokairu** pribatuen mantentzea eta garatzea ere proposatu zuen. Berria - Euskal Herria

Alokairu soziala finantza erakundeentzako "abagunea" izaten ari dela salatu zuten. Berria - Harian

Alokairu sozialaren aldeko jarrera irmoa erakutsi dute taldeok euren agirian. Berria - Euskal Herria

EAJk nahi du portzentaje horretatik %20 **alokairu** sozialeko etxebizitzak izatea eta gainontzeko %60 etxe tasatuak. Berria - Euskal Herria

Baionako Herriko Etxeak **alokairu** merkeko etxea hartzeko proposatu dio martxotik etxea okupatzen ari den familiari. Berria - Euskal Herria

Manhattango **alokairu** garestietatik ihesi, gero eta gehiago dira hiriaren erdigunetik metroz hamar minutura dagoen auzo honetara bizitzera datozenak. Harkaitz Cano

Bizitegi eta eremu eskasiaren sailean Elgar/Ensemble elkarteak dio argi eta garbi lehentasuna eman behar zaiola hemengo gazteriari, diren legeak baliatu lurra **alokairu** merkean proposatzeko gisan hemengo jendearentzat. Herria

Alokairu baxuak bultzatu. Berria - Euskal Herria

Alokairu apaleko egoitzen erakunde horren kontuak xeheki bipildu ditu Akitaniako kontu auzitegiak, 96-tik 99-a artekoak. Herria

Laborantza eta oihan sailean, **alokairu** luzakor bat egitekotan da Xalbat Charriton jaunaren alde. Herria

Ez duk asmatzen ahal zer prezio darabilten **alokairu** zirtzil batengatik -mintzoa lau segundotik behin ahoratzen nituen mahats aleen mastekatzearen kadentziara ekarriz. Aingeru Epaltza

Laikotasunak bertze interpretazio bat ere ukan dezake, Estatuak **alokairu** sinboliko baten truk diskriminazio positiboa egitea. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aldiz agorril hunen lehenetik hogoia arte **alokairu** leku guziak tanpez beteak dire. Herria

Txostenak argi esaten du EAEn ia ez dagoela **alokairu** -merkaturik, eta dagoena "garestia" dela. Berria - Euskal Herria

Nortasun agirian beste helbide bat zutenek ordainagiriak eta **alokairu** kontratuak erakutsi behar izan dituzte. Berria - Euskal Herria

Klubeko teknikariek bazuten ordurako bere talentuaren berri, konturatu bezain laster beka bat eman baitzioten, eta Santiagon **alokairu** gastuak ordaindu. Berria - Kirola

Alokairu zorrak kitatzearen truke egingo zuen lana, eta diru kopuru hura berdindutakoan, hurrengo hilabeteetako errentaren truke. Iñaki Iñurrieta

Nik beti garaiz ordaindu dut neure **alokairu** -zatia. Lopez de Arana

11 laborariei, erreberritu eta aldatu dituzte, herriaren ganik dituzten laborantzako zatien **alokairu** sariak. Herria

Baldin aberea alokatua badu, **alokairu** -saria bakarrik emango dio. Elizen arteko biblia

4 ***alokairu garbi*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi* ***1****)*

Ordu batzuk aisiarako erabiliko balira, aisia baloratzeko aukera bat **alokairu garbia** erabiltzea litzateke. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***alokairu gordin*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***5*** *agerraldi)*

Enpresek ordu gehigarri guztiak kontratatuko balituzte, beren balioa **alokairu gordina** izango litzateke, lanaren produktibitate marjinala islatzen baitu. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***alokairu greba*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***5*** *agerraldi)*

1905 urtean emakumeek Barakaldo eta Sestaon **alokairu greba** egin zuten. ETC-prentsa

Alokairu greba lur-jabe handien aurka erabili ohi izan den protesta metodo bat da. **Alokairu greban**, maizterren talde bat biltzen da eta alokairua ordaintzeari uko egiten dio lurjabeek euren eskakizunak onartzen dituzten arte. ETC-entziklopedia

7 ***alokairuan***

Alokairuan bizi zen, orain lana baitzeukan eta, beraz, apopilo moduan zegoen paradisuko etxean. Fernando Rey

Epelean auto haren atzeko jarlekuan, debaldeko **alokairuan**, ordukako hotel batean bezala, azkenean estutu batzuk eman genizkion elkarri. Fernando Rey

8 ***alokairuan eman***

Horietarik 411 sozialak izango dira, 740 babes ofizialekoak, 659 **alokairuan ematekoak** eta gainerako 492 azalera-eskubidea motakoak. Berria - Euskal Herria

Posta bulegoa dagoen egoitza zaharra da, Zuiako Udalaren esku dago eta posta bulegoari **alokairuan emana** dago. Berria - Euskal Herria

Frantsesez "... " esaten da "**alokairuan eman**" eta "alokairuan hartu" biak adierazteko; alemanez, aldiz, bi termino erabiltzen dira... eta... hortaz, ez dago terminoen arteko egokitasun zehatzik. Isabel Arrigain

9 ***alokairuan hartu***

Gainbegiratu iheskor bat egin zien egunkariko orrialde karraskariei, eta bere etxera joan zen **alokairuan hartutako** automobil batean. Eduardo Matauko

Frantsesez "... " esaten da "alokairuan eman" eta "**alokairuan hartu**" biak adierazteko; alemanez, aldiz, bi termino erabiltzen dira... eta... hortaz, ez dago terminoen arteko egokitasun zehatzik. Isabel Arrigain

Alokairuan hartzeko etxebizitza gutxi daude, eta gehienak oso garestiak dira. Berria - Euskal Herria

10 ***alokairuko ama***

Horretarako **alokairuko amek** duten orrialde elektroniko batean jarri zuen iragarkia. Berria - Gaiak

11 ***alokairuko ibilgailu gidaridun*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***9*** *agerraldi)*

Alokairuko ibilgailu gidaridunak (AIG) bidaiariak leku batetik bestera eramaten dituztenak dira. Ohiko garraio publikoaren aldean (non bezeroek geltoki jakin batzuetan igo eta jeitsi behar izaten diren) AIG-etan bezeroek, neurri batean, bidaia non hasi eta non amaitu erabaki dezakete. ETC-entziklopedia

Uber San Frantziskon sortutako **Alokairuko ibilgailu gidaridun** (AIG) enpresa da, Kalifornian, 2009an, hiriko taxi zerbitzuaz gain bezeroei beste aukera bat emateko. ETC-entziklopedia

Ziklotaxia eskala txikiko tokiko garraiobide bat da, pedalei eraginda mugitzen den triziklo edo ibilgailu bat, zeinean gidariak bidaiari bat edo bi eraman ditzakeen. **Alokairuko ibilgailu gidariduna** da, beraz. ETC-entziklopedia

12 ***alokairuko sabel*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***19*** *agerraldi)*

Ez dute onartzen "**alokairuko sabelak**" merkatuan sartu nahi dituen logika neoliberala. ETC-entziklopedia

Sabelordekoak edo **alokairuko sabelak** esamoldeak erabili ohi dira lagundutako ugalketa teknika hori izendatzeko. ETC-prentsa

Haurdunaldi subrogatuei buruzko eztabaida piztu du Nichi Vendola parlamentari italiarrak, bikotekidearekin haurra **alokairuko sabel** bidez izan duelako. ETC-prentsa

Telesailaren arrakasta **alokairuko sabelen** gaineko eztabaida gori-gorian dagoen momentuan etorri izana ez da, seguraski, inolako kasualitatea. ETC-prentsa

Beharbada, horregatik ez dut oso ondo konprenitzen zerk bultzatzen dituen **alokairuko sabelen** bidezko ugalketara bideratzea euren guraso-nahia. ETC-prentsa

13 ***alokairuzko sabel*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***16*** *agerraldi)*

Erosi ahal izateak, kontratuak zilegi egiten du guztia -**alokairuzko sabelak** horren adibide-. ETC-literatura, saiakera

Ekainean ama eta kartzela gaiaz arituko gara eta hemendik gutxira **alokairuzko sabelei** buruz. ETC-prentsa

Eta orain, ugaltze eta biogenetika teknologia berriek maxima hori inoiz baino zalantzagarriago egin dutenean? pentsa nola zatikatzen diren amak: laborategiko ernalketak, obulu txertaketak, **alokairuzko sabelak**...? ETC-prentsa

Dena den, bitxia da zein termino erabiltzen dugun: agian **alokairuzko sabelez** arituko bagina, benetan adieraziko genuke zein den egoera. ETC-prentsa

Horregatik da garrantzitsua hiztegia: **alokairuzko sabela** gutxiesgarria da, pertsonak ezin direlako alokatu. ETC-prentsa

Gero eta gertuago entzuten dut, gay bikoteen artean, **alokairuzko sabelaren** aukera (izen eufemistikoa beste bat da). ETC-prentsa

PP Espainiako Gobernuan egon den urteetan, alde batera utzi dituzte adopzio politikak, eta orduan hasi dira agertzen **alokairuzko sabelen** agentziak: lotura zuzena

dago. ETC-prentsa

Emakundek 'Haurdunaldi subrogatua edo **alokairuzko sabelak**?' txostena aurkeztu du EHUren Udako Ikastaroetan. ETC-prentsa

Alokairuzko sabelena ikusarazi nahiko liguketen bezalako eskuzabaltasunarekin. ETC-prentsa

14 *oinarrizko alokairu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Alokairuaren egiturara bildu behar dira **oinarrizko alokairua**, denbora-unitate zein obra-unitatearen araberakoa dena, eta, hala denean, alokairu osagarriak, langilearen inguruabar pertsonalen, langileak egindako lanaren edo enpresako egoera eta emaitzen araberakoak izan eta ondore horretarako itundu diren irizpideen arabera kalkulatzen direnak. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **alokairu apaleko** (3); **alokairu baten** (3); **alokairu merkean** (4); **alokairu merkeko** (5); **alokairu merkeko etxea** (4); **alokairu soziala** (6); **alokairu sozialak** (4); **alokairu sozialaren** (5); **alokairu sozialeko** (4); **alokairua ez** (3); **alokairua ordaindu** (7); **alokairua ordaintzeko** (7); **alokairua ordaintzen** (5); **alokairuan bizi** (4); **alokairuan bizi zen** (3); **alokairuan dauden** (5); **alokairuan ezartzeko** (3); **alokairuan hartzeko** (3); **alokairuan jartzeko** (4); **alokairuko etxebizitzak** (3); **alokairuko etxebizitzen** (3); **bateko alokairua** (3); **edo alokairua** (3); **eta alokairu** (5); **eta alokairua** (4); **eta alokairuan** (7); **etxebizitzaren alokairua** (6)

---

alokairuko **1** *iz* soldatapekoa. alogerekoa.

Gutxienez esleitutako etxebizitza publikoen % 60 **alokairukoak** izango dira. Berria - Euskal Herria

• **2** *izlag* alokairuan, alogerean har daitekeena.

Eraikitako etxebizitzaren erabilpena bultzatu behar da, eta **alokairuko** etxebizitza publikoaren aldeko apustu garbia egin behar da. Berria - Euskal Herria

Alokairuko zalgurdien hotsa entzuten zen urruti. Josu Zabaleta

Belarsoroen eta loreen fantasia oso bat heldu zitzaidan, eta ni erdi bizardun eta erdi erromantiko, debaldeko **alokairuko** Volkswagen hartan. Fernando Rey

---

alokapen *iz* alokatzea.

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak **alokapen** edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere. Juan Martin Elexpuru

---

alokarazi, alokaraz(i), alokatzen du *ad* alokatzera behartu.

Unibertsitateak milaka lanpostu sortzen ditu (eta ez gara hemen erakundearen langileez bakarrik ari), milaka bazkari ematen dira egunero, ehundaka etxebizitza **alokarazten** ditu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

alokatu, aloka(tu), alokatzen **1** du *ad* errentan edo soldatapean eman edo hartu.

-Hori dela eta, etxebizitza bat **alokatu** zuen Oviedon -jarraitu zuen O-k istorioaren bukaera ondo dakienaren ziurtasunaz-. Bernardo Atxaga

Aloka edo eros ezazue zalgurdi bat. Karlos Zabala

Etxe bat **alokatu** zuen -bi solairu eta pozadera batekin- Bodwin-darrengandik. Anton Garikano

Hogeita bost urte nituen hiriaren erdian **alokatu** nuenean etxea, Daniela eta honen amona Teresarekin partekatua. Jasone Osoro

Bi gela **alokatu** zituen, bi gela ilun, gangadunak, zeta horiz tapizaturiko altzariz beteak. Xabier Olarra

Lotarako beste etxe bat **alokatu** du Allison, bere neskalagunarekin, Manhattanen. Harkaitz Cano

Miarritzen lurreratu eta har zezakeen Mercedesik erraldoiena **alokatu** zuen, espantero errea baitzen. Itxaro Borda

Auto bat **aloka** nezakeen hara-hona ibiltzeko, baina nahiago dut trena, ditugun azpiegitura negargarrien tamalagatik, nahi nukeen baino gutxiago ibiltzen naiz-eta trenez. Anjel Lertxundi

Oso ondo pasatzen zuen taxi bat **alokatu** eta familia guztia mendira eramanez. Mikel Hernandez Abaitua

Pontiac etxeko saltokitik, estreinatu gabeko 50 auto ostu zituzten eta izan zen kamioia **alokatu** eta almazen erraldoi bat erabat hustu zuen banda antolatua ere. Harkaitz Cano

Joan den udan landetxetxo bat nuen **alokatua** Sena ibaiaren ertzean, Parisetik zenbait miliatara, eta hara joaten nintzen lotara gauero. Josu Zabaleta

Lurrak saldu aurretik auzoei **alokatzen** zizkielako agiria ekarri zioten, izenpe zezan. Itxaro Borda

Sei-zazpi hilabete Arizonako edo Mexiko Berriko basamortuetan artzain zinpurtu eta, sosa sakelan Durangoko Basque Hotelera hurbiltzen zen, gela **alokatzen** zuen, jana eta arropa garbiketa segurtatzen. Itxaro Borda

Hotelik ez nuela aurkituko erran zidan, baina karrika hartan bertan, lau zenbaki aurrerago, gelak **alokatzen** zituen etxe merke eta garbi bat ba omen zegoen. Alberto Ladron Arana

Hilabete t'erdirako bakarrik **alokatuko** ligukeela. Harkaitz Cano

Bere senarrarekin eta seme adoptatuarekin beheko pisuan bizi da Mimi eta goiko apartamentua **alokatu** egiten du. Harkaitz Cano

Guyren anaia gaztea, Hervé, jaiotzeko zenean ere, gaztelu bat **alokatu** baitzuen amak, nobleziari dagokion bezala jaio zitezen inondik ere gauza handitarako sortuak zituen bere semeak. Josu Zabaleta

Maleta hartu eta inguruan taxirik ageri ez zenez, auto bat **alokatzea** erabaki zuen. Harkaitz Cano

Goiz batean kotxe bat **alokatu** zuten Praterrean barrena ibiltzeko. Xabier Olarra

Hurrengo urratsean, berriz, txalupa edo untzi tipi bat **aloka** geniezaiokeen untzijaberen bati. Joan Mari Irigoien

Alokatzeko pisuak eskaintzen dituen etxe batean. Lopez de Arana

Hotelik ez nuela aurkituko erran zidan, baina karrika hartan bertan, lau zenbaki aurrerago, gelak **alokatzen** zituen etxe merke eta garbi bat ba omen zegoen. Alberto Ladron Arana

Gaur arratsaldean Txuspo Poyo delako batekin geratu naiz: erdi okupatutako fabrika batean espazioak **alokatzen** omen ditu Brooklynen. Harkaitz Cano

Trenean zihoazenei errifleak **alokatzen** zizkieten, denborapasa ederrean bertatik bufaloak tirokatzeko. Patxi Zubizarreta

Bakardadearen mamua uxatzeko, bideoak hasi nintzen **alokatzen**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ivan Revinsky zirku enpresariak bi erabaki garrantzitsu hartu zituen: lehena, zirkua karpa erraldoi batekin estaltzea, artistak eguraldiaren mende ez egoteaz gain, inguruetako etxeetatik ikuskizuna inork doan ikus ez zezan, eta, batez ere, herrietako plaza nagusietan bizkarroiren batek bere balkoia merkezurrean **alokatuta** negoziorik egin ez zezan. Harkaitz Cano

Auzoa ezagutzen du, edo ezagutzen zuen, hantxe bizi izan baitzen ikasle garaian, **alokatutako** pisu batean. Iban Zaldua

Osaba Vernonek **alokatutako** txalupa oraindik han zegoen. Iñaki Mendiguren

Amonak ongi daki hori, baina ez ikusiarena egiten du, gela txar hori oso garesti **alokatzen** baitie. Juan Kruz Igerabide

Auto bat **aloka** nezakeen hara-hona ibiltzeko, baina nahiago dut trena. Anjel Lertxundi

Aloka edo eros ezazue zalgurdi bat. Karlos Zabala

Telebista digitalera sarbidea izateko deskodetzailea 99 euroren truke erosi ahal izango da, edo hilean sei euroren truke **aloka** daiteke. Berria - Ekonomia

Metalen eskualdea egun biko bidera zen: asto bat **alokatu** dut, bere gidariarekin. Juan Garzia

Jabeek gelaka **alokatu** diete pisua hainbat etorkin magrebdarrei. Iban Zaldua

Egun pare bat zintzilik egon zen **"alokatzeko"** zioen kartela etxeko atarian.· Bamberg-en ideia bera izan zuten denek: prostitutak **alokatu** zituzten. Eduardo Matauko

Sekula ez zituen eraman Baby Suggsen txabolara, "hari txortan egiteko" aginduarekin -Carolinan bezala-, eta ezta haien sexua **alokatu** ere beste baserrietan. Anton Garikano

Haur bat **alokatzen** zuten, amak beren ibilietan eramateko. Patxi Zubizarreta

Egia esateko, aspalditxo bururatu zitzaigun, barrealgara artean, zakil bat **alokatzea**, hori zer den, behin gutxienez, probatzeko. Juan Martin Elexpuru

Baziren beren umetokia **alokatzen** zutenak ere. Pablo Sastre

2 soldataren truke (norbait) lanerako hartu.

Ematen du Asiriar Inperioaren ondorengo estatu neobabiloniarrak Egiptoren jarraibideari segitu ziola mertzenario helenikoak **alokatzean**. Moabdarrek, gainera, Beor-en seme Balaam **alokatu** zuten eta Mesopotamiako Petor hiritik etorrarazi, zuek madarikatzeko. Iñaki Mendiguren

Legeak zeudek egin zuenaren kontra: beltzei beren burua **alokatzen** uztea, askatasuna erosteko. Anton Garikano

Batzuek urrea poltsatik atera, zilarra balantzan pisatu eta zilargina **alokatzen** dute, jainkoa egin diezaien, eta ahozpezturik huraxe gurtzen. Elizen arteko biblia

Orain dela gutti arte, karrikan bizi ziren umezurtzak merke eta biziki errazki **alokatzen** ahal ziren. Ramuntxo Etxeberri

Baby Suggsek ezagututako gizon guztiek -maitatuek zer esanik ez-, ez bazuten ihes egin edo ez bazituzten urkatu, **alokatuta** bukatu zuten, mailegatuta, salduta, atzera ekarrita, nonbait pilatuta, hipotekatuta, irabazita, lapurtuta edo atxilotuta. Anton Garikano

3 (era burutua izenondo gisa)

Deiaren zain etxean egoteko ohitura hartu nuen; etxebizitza **alokatu** bat zen, eta jende gehiagorekin bizi nintzen bertan, gastuak banatzeko eta. Xabier Mendiguren Elizegi

Ramsaytarrak udako etxe **alokatuan** daude, Eskoziako Skye irlan. Markos Zapiain

Martak, Patakiren pastazko betaurrekoak eta ileorde beltza soinean zituela, Cesar Telleriaren etxe **alokaturako** eskailerak igo zituen. Harkaitz Cano

Behi batek eta hiru ahatek ordezkatzen dituzte faisaiak: konpartsa **alokatuak**, dudarik gabe, paper hori jokatzearren bidaztion bozkariorako. Hoteleko ohe **alokatuan**, / sentimenduekin trafikatzen zuten. Koldo Izagirre

Lotsagarri eta barregarri uzten ninduten, zapatillen eta jaka **alokatuaren** historia ere ateraz, eta ordaintzen ez banien bizitza guztirako beren morroi bihurtzeko nintzela esanez. Fernando Rey

Ekonomiaren pentsamenduaren klasiko batzuk baditugu euskaraz: Marxen zenbait idatzi, esaterako Lan **alokatua** eta kapitala (Xabier Kintanak itzulitakoa; Lur, 1971). Iñaki Heras

Eta hire aulkiak hutsik geratu zitunan, harik eta lurra ematera joan ginen arte, gizon **alokatu** haiekin, eurena ez zen zama batengatik izerditan, inolako penari arrotz. Juan Garzia

Misiako gudari **alokatuen** buruzagi zen Apolonio bidali zuen Antiokok Jerusalemera hogeita bi mila gizoneko gudarostearen buruzagi, sasoiko gizaseme guztiei lepoa mozteko, eta emakumeak eta haurrak esklabo saltzeko aginduz. Elizen arteko biblia

4 irud/hed

Zorionez, marabut afrikar oso aberats bat etorri zen gurera, eta urrea truke **alokatu** zituen nire zerbitzuak aste batez. Joxan Elosegi

Ilusioa **alokatu**. Jasone Osoro

Arrazoimen arruntetik **alokatzen** dituzten erregela arruntak eta enpirikoki erabiliak baliagarriak zaizkie axiomen ordez. Ibon Uribarri

Amets horiek erosi, lilura horiek **alokatu**, edo abentura horiek ordaindu zitzaketen gizonak. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alokatu behar (7); **alokatu behar izan** (4); **alokatu du** (3); **alokatu dute** (3); **alokatu edo** (3); **alokatu egiten** (3); **alokatu eta** (14); **alokatu genuen** (4); **alokatu nahi** (7); **alokatu nahi nuen** (3); **alokatu nuen** (3); **alokatu zion** (5); **alokatu zituen** (4); **alokatu zuen** (16); **alokatu zuen eta** (4); **alokatu zuten** (11); **alokatutako etxean** (5); **alokatzea erabaki** (3); **alokatzea erabaki zuen** (3); **alokatzea ere** (3); **alokatzen da** (3); **alokatzen dituzten** (5); **alokatzen dute** (3); **alokatzen edo** (3); **alokatzen zituen** (5); **alokatzen zituzten** (3); **alokatzen zuen** (7); **bat alokatu** (46); **bat alokatu eta** (5); **bat alokatu nahi** (4); **bat alokatu zuen** (7); **bat alokatu zuten** (3); **bat alokatua** (3); **bat alokatzea** (11); **bat alokatzeko** (10); **bat alokatzen** (8); **baten alokatzea** (4); **baten alokatzeko** (4); **diskoak alokatzeko** (3); **edo alokatzeko** (4); **eta alokatu** (5); **eta alokatzeko** (3); **etxe bat alokatu** (8); **etxe bat alokatzea** (3); **etxe bat alokatzen** (3); **etxea alokatu** (5); **etxea alokatzen** (4); **etxebizitza alokatu** (3); **etxebizitza alokatzeko** (5); **etxebizitza bat alokatu** (3); **gela alokatu** (4); **gela bat alokatu** (6); **gelak alokatzen** (4); **gelak alokatzen dituzten** (3); **irusoin eta alokatu** (3); **pisu bat alokatu** (3); **pisua alokatu** (3); **pisua alokatzea** (3)

---

alokatzaile *iz/izond* alokatzen duena.

Argitu beharko dira zein diren **alokatzailearen** fede ona frogatzeko irizpideak. Berria - Euskal Herria

Hilketaren bezperan **alokatzailea** komisarian zegoen, Poliziak alkoholaren eraginpean gidatzeagatik atxilotu zuelako. Berria - Euskal Herria

34 administratzaile hautatuak izan ziren: 13 hautetsi, sozio-profesional saileko 10, elkarteen 7 ordezkari eta **alokatzaileetarik** 4. Herria

Ducasse ostatuaren **alokatzailea** baizik ez da, mementoko. Herria

Seaskaren baitan dagon Egoitza egitura da ororen jabe, ikastolako burasoen elkartea **alokatzaile** baizik ez delarik. Herria

Eguerdia jotzen ari zuela 31. zenbakiko etxean sartu zen, Nicolas Bricoletenean, jantzi **alokatzailea** bera, altzari zaharren saltzailea, bigarren eskuko liburuen saltzailea, eta antzinako oinetakoen konpontzailea, zapataria, alegia, libre zituen uneetan. Josu Zabaleta

Beraz kudeatzaile hori da auzoekin edo bertze askorekin izaiten ahal diren eztabadak edo berdin etxetiar **alokatzaileek** izaiten ahal dituzten aharra bideak tribunaletarat joan gabe zerbeit gisaz kontseiluak emanez edo zerbeit argitasun emanez entseiatzen dena jendeak elgarrekin berriz bide xuxenean ezartzea. Herria

Marc-Philippe Daubresse Frantziako Etxebizitza Estatu idazkariak Frantziako "etxebizitzaren krisi larriaz" mintzatzera jin zen, etxebizitzaren arloan lanean ari diren beste Frantziako aktore nagusiekin: sindikatu, jabe eta **alokatzaile** elkarteko adituak, besteak beste. Berria - Euskal Herria

---

alokatze **1** *iz* errentan eman edo hartzea.

Leku **alokatze** honek bozkariotan sartu gintuen. hautetsiak ados dira eta esku emana zako auzapezari **alokatze** hori prestatzeko. Koldo Izagirre

Alokatze ala eroste, dokumentu ofizialentzat ziren. Xipri Arbelbide

2 ***alokatze hitzarmen*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Egunotan ari dira Espainiako Defentsa Ministerioa eta Bardeako Batzarra **alokatze hitzarmena** berritzeko negoziatzen. ETC-prentsa

Reading herriko alkatearen laguntzaz, jabeekin urte baterako **alokatze-hitzarmena** egin zuten. ETC-literatura, saiakera

3 ***alokatze kontratu*** *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Behar bezalako **alokatze-kontratuak** egingo zitzaizkiela. ETC-literatura, saiakera

Elena Gomezen izenean dago, **alokatze kontratua** bezala. ETC-literatura, saiakera

Bi kolegio horien egoera nahiko txarra da, Ziburukoa ez baita baldintza onetan, eta Donaixtiko **alokatze kontratua** laster bukatuko baita. ETC-prentsa

Tiro poligonoaren **alokatze kontratua** 2008an bukatuko da, baina, antza denez, beste batzuetan bezala, Espainiako Gobernuak, Bardeako Batzordearen ezinbesteko laguntzarekin, luzatu egingo du. ETC-prentsa

Etxebizitza lortzeko, 53 etxe agentziatara jo zuten gazteek, baina bakar batek ere ez zien **alokatze kontraturik** egin. ETC-prentsa

Etxekoek pisua alokatua zutela ziurtatzen zuten, ordura arte alokairua ordaintzen zutela, eta **alokatze-kontratu** bat erakutsi zieten. ETC-prentsa

Alokatzaileak 2014ko martxoaren 27tik landa izenpetua badu **alokatze kontratua**, debekatua du jabearen baimenik gabe azpialokatzea. ETC-prentsa

Etxebizitza osagarriak jasotzearren, gezurretako **alokatze kontratuak** ere aurkeztu zituzten. ETC-prentsa

alokazer *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* jornalean dabilen langilea, bereziki lehen sektorean. ik **jornalari**, **jornalero**.

Hala, XX. mendearen hasieran, arrantzaleek baino 1,6 bider gehiago irabazten zuten nekazari **alokazerek**. ETC-entziklopedia

1836. urteko Mendizabalen desamortizazioaren ondorioz, burgesiak erositako lur berriak lantzen dituen **alokazer** edo jornaleroa agertu zen. ETC-entziklopedia

---

alokazio *(orobat **alokazione**) iz* alokatzea, errentan eman edo hartzea; soldataren truke (norbait) lanerako hartu.

Gure gaiaren mamira bil gaitezen berriro: zure irudiz, Elpides, gerla premiazkoa izan daiteke jana, edana, lana, seguritate soziala, **alokazioak**, langabezia-sariak eta subentzioak estatutik ausarki eskuratu arren? Itxaro Borda

Hendaian frogatu da " CAF " Familien **alokazio** kutxak diruz laguntzen dituen gazteen agusagailu kontratuen barne animazio batzu euskaraz posible direla, haurrek eskolatik kanpoko tenoretan euskaraz jostatzeko parada ukan dezaten. Herria

Attaceko kide eta langabetu batek hilabetean 401 eurorekin bizi behar du, gutxiengo elkartasun **alokazioaren** bidez. Berria - Euskal Herria

Lehenik ikusi beharko da **alokazione** etxeekin eta herri bakotxean zer haur kontratu eta zer denbora izaiten ahal den. Herria

---

alokazione ik **alokazio**.

---

aloktono *(corpusean ez dago; ETCn **100** agerraldi) iz* autoktonoa ez dena.

Zaitegi zitologiako berba **aloktono** horiek "guztiak" ukatzera dator, langa jartzera dator. ETC-literatura, saiakera

Hortaz, zalantzarik ote dago gaztelaniaz mintzatzeko era batez gabe bete-beteko hizkuntza batez ari direla, euskarari buruz, eta, ohitura **aloktonoari** jarraikiz, vizcaíno deitzen diotela? Bada, oraindik badago gehiago. ETC-prentsa

Portugaleteko eta Getxoko alkateei ez zaie beste ideia okerragorik bururatu, ospakizunen karietarat Reef Jam Session bezalako jai **aloktono** populista bat antolatzea baino. ETC-prentsa

Aipatutako lanak zioen 46 espezie **aloktono** arrotzak zeudela; horrek ez du esan nahi inbaditzaileak direnik. ETC-prentsa

Flora bi ataletan banatu dugu: autoktonoak eta **aloktonoak** edo kanpokoak; guztira, 71 espezie. ETC-prentsa

Pitillasko aintziran espezie **aloktonoak** ere garatzen dira: karramarro amerikarra, zamo arrunta eta Floridako apoarmatua, nagusiki. ETC-prentsa

Parkeko eremuaren %45 berezko basoak dira, eta %25 baso landaketek osatzen dute, espezie **aloktonoek**. ETC-prentsa

Egurra ekoiztu asmoz landatzen hasitako espezie **aloktonoek** (jatorriz kanpokoak) bertakoak ordezkatzen amaitu dute. ETC-prentsa

Foru lege honek indarra hartu eta gero Nafarroako Foru Komunitatera ekartzen diren edo berez sartzen diren espezie, subespezie edo populazio **aloktono** berriak ezin izanen dira arrantza-gai deklaratu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ehunka kilometro karratuko gatz-xafla **aloktono** handiak aurkitu ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hauek gravettiarreko kulturaren ondorengoak dira, teknikak eta tresna litikoak erreproduzitzen dituztelako, zenbait elementu **aloktono** agertzen badira ere. ETC-entziklopedia

Aurkitutako lehengaien artean, material litiko **aloktono** gehienak suharri hondakinak dira, baina kuartzo eta okre aztarna batzuk ere aurkitu ziren. ETC-entziklopedia

---

alokutibo *izond* adizkiez mintzatuz, solaskidearen marka adierazten duen adizkia.

Euskarak badu, gainera, jardun mota bakoitza zedarritzeko bitarteko berezia: aditz **alokutiboak**. Koldo Zuazo

Euskal Herriko ekialdean beste **alokutibo** bi ere erabiltzen dira: zuketa eta xuketa. Koldo Zuazo

Zeharo bidezkoa dute euren zuketa eta xuketa **alokutibo** bereziak erabiltzea: *bizi nuzu* eta *bizi nuxu* (orok. Koldo Zuazo

---

alomorfo *(corpusean ez dago; ETCn **70** agerraldi) iz* hizkuntzalaritzan, morfema batek izan dezakeen aldagaia.

Hainbat **alomorfo** erabili da (hamaQ bi aldiz, bat/ (hama) ika, bederatzi/ (heme) retzi) morfotaktika edo erregelak sinplifikatzearren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hiztun zaharrenek ezagutzen zituzten morfema bakoitzaren **alomorfo** guztiak; berebat, adinekoak ziren eguneroko eta lagunarteko mintzoan erori edo galdutako bokalarteko bokalerdi guztiak xuxen berreraikitzeko gaitasuna zutenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Testuinguruaren arabera, morfemaren forma batzuk ala besteak, hau da, **alomorfo** batzuk ala besteak, ahoskatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

(14) adibideari erreparatuz, bi **alomorfo** dituela ikus liteke: -i- eta -ki-. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hainbesterainokorik gabe -tute XVIII. mendeaz geroztiko bizkaierazko aditz izena (< -tu-te), -te eta are -tze **baino** alomorfo modernoagoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Morfema baten ahoskera fonologiko zehatzari, hain zuzen ere, morfo deritzo, baina **alomorfo** berba erabiltzen da ahoskera jakin batek aldagai bat baino gehiago daukanean. ETC-entziklopedia

---

alondegi *iz* garia eto kidekoak gordetzeko udal eraikina.

Phillipe Starck artista frantziarrak diseinatuko du Bilboko **Alondegia** eraikinaren barrualdea, "askatasuna abiaburu eta helburu izango duen espazioa". Berria - Kultura

Starck luze mintzatu zen, Bilbori buruz eta **Alondegi** berria egiteko orduan jarraituko duen "askatasunaren filosofiari" buruz. Berria - Kultura

Zubira bitartean Lainez ez da inorekin gurutzatu, eta ibaiaren beste aldeko **alondegian** topatu dituen bi langileak ez diote kasurik egin, baskula gainean den kamioia pisatzen ari baitira eta oso lanpetuak dirudite. Pello Lizarralde

Alondegiko alderdi bat okupatzen zuen, eta gau batean logeletaraino ere ailegatu ginen. Rafa Egiguren

Agindu hori eskuan zuela iritsi zen pasa den ostiralean Ertzaintza Getariako **alondegira**, batzarra deituta zegoen tokira. Berria - Euskal Herria

Ezker-eskuin jendea korrika batean jaisten zen babeslekua prestatuta zegoen **alondegirantz**. Jon Maia

Badirudi, "azoka" hitza, "zeja", "zoko", **"alondegi"** edo "almazen" bezalaxe, arabieratik datorkigula. Patziku Perurena

---

alondo *iz* hainbat aldiz ardiak umetu ondoren zikiratzen den den aharia. *iz*

Hirulau (edo bosei) hilabete aurretik begia emana eduki du artzainak artaldean, akatsen bategatik haragitako bereiztua; nere ume denboran artantzu aharikoa, zikoroxta, **alondoa** eta holakoak izaten ziren endemas arakaitako. Patziku Perurena

---

alopatia *iz* sendatze metodoa, eritasunaren ezagugarri direnen kontrako ondorioak dituzten sendabideak erabilzean datzana.

Aurkitu dut bi jokamolde daudela maitasunean, orain dela laurogei urteko medikuntzan bezala: **alopatia** eta homeopatia. Homeopatia, iz. **Alopatiaren** eta Zientzia Kristauaren erdibidean dagoen medikuntza-eskola. Maitasun-**alopatia** neutralizatzean oinarritzen da. Josu Zabaleta

---

alopezia 1 *iz* buruko ilea erortzea.

negar egin genuen gogotik, mononukleosiak jota, eta estasiatu egin nintzen Kapitulinaren alitosi ahaztezinean, Melezioren **alopezia** berdingabean, Flumenzioren piorrea maitagarrian. Karlos Linazasoro

2 *alopezia androgeniko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ilea erortzea oso arazo konplexua da; gaurkoan, gizonezkoen kasuan buru soiltasuna eragiten duten hainbat arrazoiren artean, **alopezia androgenikoari** begiratuko diogu, hau da, hormonek -androgenoek, zehazkiago esateko- eragindako buru-soiltasunari. ETC-prentsa

---

alor *(ETCn **31.405** agerraldi)* 1 *iz* giza jardun bat banatzen den zati bakoitza. ik **sail 3**.

Agerikotasun hori, normalean, literaturatik at dauden **alorretan** lortzen da areago. Ana Urkiza

Edateko uraren eta hondakinen **alorrean** aurrekontuak emendatzea proposatzen dute. Berria - Euskal Herria

Gainera, liburu eta artikulu on asko dago fonetika eta fonologiaren **alorrean**. Lourdes Oñederra

Iruzkinak, ezinbestean -gaia ere halakoxea zelako-, azterketa filologiko hutsetik aldendu eta psikologiaren **alorretan** sartzen ziren maiz, eta ezari-ezarian interesa piztuz joan zitzaion. Iñaki Iñurrieta

Haren ondare ezabaezina, ordea, filosofia politikoaren **alorrean** da eta, hortik zabalduz, zientzia sozialean ere bai. Esteban Antxustegi

Mututasun orokorraren **alorreko** lehen aditza landatu nuen. Itxaro Borda

Zientzia asko aitzinatu dela ginekologiaren **alorrean**. Hasier Etxeberria

Afaltzen ari ginen bitartean, politikaren **alorrera** lerratu zen pixkanaka elkarrizketa. Juan Kruz Igerabide

Biak buruargi, euskaltzale zintzo eta amultsuak, egungo egunean txit dira ezagunak, nor bere **alorrean**. Gotzon Garate

Ez dago, bada, zeraren zera guztiz orijinalik, ez artegintzan eta ez gainerako giza **alorretan** ere. Anjel Lertxundi

Azken ideia horri esker, ondasun kolektiboaren kontzeptua (edo kanpokotasunaren kontzeptua) sar daiteke nazioarteko ekonomiaren **alorrean**. Koro Navarro

Dena den, aipatu dudan adierazpen ofizioso horrek lege eta matematika **alorreko** hainbat eztabaida eragin zuen. Juan Garzia

Kolonbian, Barranquillatik hurbil, Rioquemado deitzen den herrixkan, gerraondoan erbesteraturiko familia euskaldun bat bizi omen da psikiatria **alorreko** erietxean lanean. Joseba Sarrionandia

Izan ere, bihotz-bihotzez maite nuen nik neure osaba hura: maite nuen, zuhaitzak urtxintxen antzera igaiten zituelako edo teleskopiotik beha jartzen ninduelako noiznahi-den; maite nuen, aritmetikan eta geometrian maisu eta irakasle nuelako, baita bizitzaren bertze mila **alorretan** ere... edo txakurrei izen xelebreak ipintzen zizkiolako, Greziako edo Erromako historiarekin lotuak... Joan Mari Irigoien

Eta hala ere, hona zein **alorretan** eman zuen gerra: Koldo Izagirre

Bilakaera gertaera baten aurretik, hura baino lehen, beti gertaera bat, edo hobe esanda, zenbait gertaera antzeko izan dira hizketaren **alorrean**. Isabel Arrigain

Baserritarrak lapurrari eman dion izena ere ez da xaloa, eta orain onomastikaren **alorra** erakarri nahi dut, diziplinen arteko joan-etorrien onurak neureganatuz, antropologiara. Anjel Lertxundi

Ondasun higigarriak merkataritzaren **alorrekoak** dira; higiezinak, ostera, lege zibilaren meneko. Andres Urrutia

2 *iz* lantzen den lur zati edo eremu mugatua. ik **sail 1**, **soro**.

Beraz erreka behar zuten baitezpada kurutzatu **alor** lanetara joaiteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nondik lortu lurra lantzeko, **alorrak** ereiteko, uztak biltzeko behar beste esku, emankorragoa bada lurra lehergailuz eta pikotxaz iraultzea? Karlos Zabala

Gero, ez bat eta ez bi, burdin sarearen zirrikitu batetik sartu, eta bide pribatuan gora egin du tximistaren pare, gladioloen **alorreraino**. Patxi Iturritegi

Lainoan galtzen ziren, autobidearen alde bietako **alor** eta herrien antzera gure atzean. Xabier Montoia

Mahabalipuran, Madrasen, lorito talde handi bat arroz **alor** batera joan zen jatera. Gotzon Garate

Europa zaharreko goldeen zain zauden **alorrak**, hango trontza-zerren zain haritz eta gaztainak, hango pikatxoien zain mendi-muinetako aberastasunak. Anjel Lertxundi

Beleak bakarrik zebiltzan, taldeka, zeruan arku luzeak eginez, beren bidea alferrik bilatzen, denak batera **alor** zurbiletara jaisten eta beren moko handiez elurrari mokoka eginez. Josu Zabaleta

- Nahikoa ditek maskaradak antolatzen, arto **alorrak** lantzen eta golf zelaiak zaintzen, orain turismoa egiten hasteko! Iñigo Aranbarri

Baso iluneko sarobe izerdituak, larreko artzaitxabola isilduak, eguterako ardiborda itzalduak, udal mintegi antzutuak, belasoro zahartuak, barruti zakarrak hartuak, **alor** pinudituak, atari lokaztuak, usategi mututuak, ermita lotsatuak, etxe desesperatuak, burniola sorginduak, zubi alfertuak, gaztelu erotuak... Patziku Perurena

Are laster gehiago egiten genuen orduan, gure ardi ñapur kankaila gosetien handik jalgitzeko, **alorren** jabeak ohartu baino lehen. Itxaro Borda

Berrehunen bat metrora dago eta irten berria da **alor** batetik. Pello Lizarralde

[...] eta ezinbestean geldi geratu behar izan genuen, berriz ere, isil-isilik gari **alor** batean, eta nirekin zeuden guztien buru egiten zuen Mem Ramiresi ongi iruditu zitzaionean, malda igotzen hasi ginen [...] Jon Alonso

3 (izenondoekin)

Izan ere, **alor** semantiko zabal-zabala du "errepikapen" hitzak, eta bere baitan onartzen dituen prozedura guztiak ez ditugu haren haritik aztertuko. Iñaki Arranz

Baina bai: euskara ari da **alor** berriak irabazten. Joxerra Garzia

Alor didaktikoan kokatu behar da Pertsona eta sozietatea argitalpena ere. Berria - Kultura

Bere beste lan **alor** nagusia euskal filologiari dagokiona da. Berria - Kultura

Halatan, euskal gatazka **alor** literarioan islatzean, kutsu beltzeko edo molde indibidualistako narrazio psikologikoak nabarmendu dira. Berria - Kultura

Makineria pisuaren laguntza behar duten zientziaren edo pentsamenduaren eremu handi-zabalak bezain maite zituen letra tiki-zirtzilen goldeaz lantzen diren **alor** apalak, eta haietara biziotsuaren gutiziaz makurtzen. Aingeru Epaltza

Bihar goizean aireportua den lur **alor** zapaldura joango naiz, Managuarako hegazkina hartzeko. Joseba Sarrionandia

Eskorta edo oilategi txiki hura oholesi batez inguraturik zegoen, eta oholesiaz bestaldean **alor** ikaragarri zabalak ikusten ziren, eta, han ereinda, azak, tipulak, patatak, erremolatxak eta bestelako barazkiak. Jose Morales

Margaren azalak zurira egin zuen, eta nazka zen begietaratu zitzaiona: bere **alor** profesionalean sartzeko ausardia izan nuelako edo nire susmoekin Marcel Martinen izena lohitzen nuelako, ez dakit. Ramon Saizarbitoria

Liburuaren zabalkundearekin areagotu egingo da eragin hau **alor** penalean, baita itzulpena agertu aurretik ere. Juan Martin Elexpuru

Baina hemen kontzeptuaren historiara mugatuko gara, eta apunte batzuetara bakarrik, esaustibotasun uzirik gabe, oroz gain **alor** nagusi batzuk seinalatzea beste asmo barik, gazteren batek artoski ikertu nahi baleza, nondik hasi baduela erakusteko adina. Joxe Azurmendi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bertan, alkatea etsituta agertzen zen: arazo larri asko zituen Arabako hiriburuan eta horien aurrean amore eman behar izan zuela aitortzen zien bere herrikide maiteei; eraikuntza **alorreko** enpresarien aurrean, adibidez. Txema Ramirez de la Piscina

Peter Laing agertu zen handik, zientzia **alorreko** Segurtasun Nazionaleko kontseilarietako bat. Fernando Morillo

Elikadura **alorreko** lobby-en indarra handia da. Berria - Euskal Herria

Industria **alorrean** isurketen inguruan hobekuntzak badaude ere, errepideko garraioarekin lotutako isurketa kutsagarrien igoerak une honetan asko zailtzen du Kyotoko Protokoloa betetzea. Berria - Euskal Herria

Dena den, hezkuntza **alorrean** hobetzea baino irizpide garrantzitsuagoa da gehienentzat faktore ekonomikoa, eta, ondorioz, seme-alabek ahal bezain pronto lana aurkitzea dute helburu. Berria - Euskal Herria

Ortografia **alorrean**, ostera, urrats esanguratsuak egin ziren, eta horretan, hain zuzen, Iparraldekoak izan ziren bide urratzaile. Koldo Zuazo

Baina norbaitek, albo-**alorretatik**, bertsogintzak zer eskain diezaiokeen ikertzen hasi nahi balu gonbitea luzatzen ahalegindu naiz. Andoni Egaña

5 *baratze alor* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Balkoi interesgarria da Ebro ibaiaren ondoan hazten diren arboladia eta **baratze alorrak** ikusteko, baita XIII. mendera eramango duen Radako dorretxea ere, zeina muino xume baten gainean altxatzen den, Lodosako barrutian. ETC-prentsa

6 *merkataritza-alor*

Aurrerantzean bi estatuak hezkuntza, defentsa eta **merkataritza alorretan** ariko dira elkarlanean. Berria - Mundua

Arantxa Gonzalez EBko **Merkataritza alorreko** eledunak. Berria - Ekonomia

LAB eta ELA sindikatuetako **merkataritza alorreko** delegatuek manifestazioa egin zuten atzo Gasteizen, saltokiak jaiegunetan zabal ez daitezela eskatzeko. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alor asko (7); **alor askotako** (6); **alor askotan** (22); **alor askotan bezala** (3); **alor aztertu** (4); **alor bakoitzean** (4); **alor bakoitzeko** (5); **alor bat** (22); **alor bat da** (5); **alor batean** (14); **alor batetik** (5); **alor batzuetako** (5); **alor batzuetan** (27); **alor batzuetan ere** (8); **alor batzuetara** (4); **alor batzuk** (5); **alor berezi** (5); **alor beroan** (5); **alor berri** (4); **alor berriak** (5); **alor bi** (3); **alor eta** (22); **alor eta eremu** (3); **alor ez** (3); **alor ezberdinetako** (3); **alor ezberdinetan** (5); **alor fisikoa** (3); **alor gehienetan** (3); **alor gehientsuenetan** (3); **alor guzietan** (4); **alor guztiak** (12); **alor guztiak jorratu** (3); **alor guztien** (3); **alor guztietako** (6); **alor guztietan** (39); **alor guztietan izan** (4); **alor guztietara** (7); **alor hartan** (8); **alor hau** (6); **alor hauek** (6); **alor honen** (3); **alor honetako** (3); **alor honetan** (32); **alor honetatik** (4); **alor honetatik at** (3); **alor hori** (26); **alor hori indartzeko** (3); **alor horiek** (8); **alor horietan** (16); **alor horrek** (6); **alor horren** (5); **alor horretako** (13); **alor horretan** (119); **alor horretan egiten** (4); **alor horretara** (3); **alor horretarako** (3); **alor horri** (7); **alor jakin** (7); **alor jakin batzuetan** (3); **alor jorratu** (3); **alor kantak** (3); **alor landu** (3); **alor osoa** (4); **alor politikoan** (3); **alor pribatua** (3); **alor pribatuan** (3); **alor psikologikoa** (4); **alor sozio** (3); **alor zabala** (3); **alorrez alor** (10); **arte alor** (4); **azken alor** (3); **baina alor** (3); **bere alor** (5); **beste alor** (52); **beste alor askotan** (3); **beste alor bat** (4); **beste alor batean** (3); **beste alor batzuetako** (5); **beste alor batzuetan** (17); **beste hainbat alor** (4); **bi alor** (13); **bi alor horietan** (4); **biziko alor** (3); **bizitzako alor** (4); **da alor** (11); **da alor horretan** (3); **dira alor** (8); **dira alor horretan** (3); **ditu alor** (3); **ditugu alor** (4); **ditugu alor horretan** (3); **dituzte alor** (3); **du alor** (6); **du alor horretan** (3); **duen alor** (3); **dugu alor** (4); **dute alor** (5); **edo alor** (4); **ekonomiaren alor** (5); **ekonomiaren alor guztietan** (3); **eta alor** (46); **eta alor horretan** (11); **eta beste alor** (3); **gizarteko alor** (9); **gizarteko alor guztietan** (3); **hainbat alor** (16); **hori alor** (5); **hutsaren alor** (3); **iker alor** (3); **ikerketa alor** (3); **jakintza alor** (3); **jokoaren alor** (11); **jokoaren alor guztietan** (4); **lur alor** (3); **matematika alor** (3); **oso alor** (3); **zen alor** (7); **zenbait alor** (3); **zeruko alor** (12); **zeruko alor beroan** (5); **zientziaren alor** (3); **ziren alor** (5); **zuen alor** (9)

ahalgarriaren alorraz goiti (3); **alorra da** (7); **alorra ere** (3); **alorra eta** (5); **alorra ez** (3); **alorrak eta** (8); **alorrarekin zerikusia** (3); **alorrari dagokionez** (6); **alorraz goiti** (5); **bere alorra** (5); **bi alorrak** (7); **den alorra** (3); **dituzten alorrak** (3); **duen alorra** (6); **duten alorrak** (4); **entzunezkoen alorra** (4); **esperientzia ahalgarriaren alorraz** (3); **gure alorrak** (3); **ikerketa alorra** (3); **ikus entzunezkoen alorra** (4)

alorrean aritu (5); **alorrean aritzen** (3); **alorrean aurrera** (3); **alorrean aurrerapauso** (3); **alorrean bereziki** (3); **alorrean dagoen** (4); **alorrean dauden** (3); **alorrean diharduten** (3); **alorrean duen** (6); **alorrean edo** (3); **alorrean egin** (12); **alorrean egindako** (9); **alorrean egiten** (3); **alorrean emandako** (3); **alorrean ere** (19); **alorrean eta** (16); **alorrean ez** (3); **alorrean gertatzen** (3); **alorrean hainbat** (3); **alorrean hiru** (3); **alorrean izan** (4); **alorrean kokatzen** (5); **alorrean lan** (21); **alorrean lan egiten** (12); **alorrean lanean** (10); **alorrean orain** (4); **alorrean sartu** (3); **alorrean sortzen** (4); **alorrean zer** (4); **animazioaren alorrean** (3); **arkitekturaren alorrean** (3); **arrazoimen hutsaren alorrean** (4); **arte eszenikoen alorrean** (3); **bakoitzak bere alorrean** (3); **bere alorrean** (17); **berriztagarrien alorrean** (3); **bioteknologiaren alorrean** (3); **defentsa alorrean** (3); **ekonomia alorrean** (7); **ekonomiaren alorrean** (7); **energia alorrean** (6); **energia berriztagarrien alorrean** (3); **energiaren alorrean** (3); **entzunezkoen alorrean** (3); **eraikuntza alorrean** (4); **eraikuntzaren alorrean** (3); **eskubideen alorrean** (25); **eskubideen alorrean lan** (4); **eszenikoen alorrean** (3); **etxebizitzaren alorrean** (4); **etxegintza alorrean** (3); **euskararen alorrean** (21); **finantzaketaren alorrean** (3); **finantzen alorrean** (3); **genetikaren alorrean** (4); **giza eskubideen alorrean** (17); **gizarte zientzien alorrean** (5); **hedabideen alorrean** (4); **hezkuntza alorrean** (15); **hezkuntzaren alorrean** (13); **hizkuntza politikaren alorrean** (3); **hizkuntzaren alorrean** (8); **hutsaren alorrean** (7); **ikerketaren alorrean** (3); **ikerkuntzaren alorrean** (5); **ikus entzunezkoen alorrean** (3); **immigrazioaren alorrean** (6); **industria alorrean** (5); **industriaren alorrean** (5); **irakaskuntza alorrean** (3); **irakaskuntzaren alorrean** (4); **kirol alorrean** (3); **kulturaren alorrean** (3); **lan alorrean** (3); **literaturaren alorrean** (3); **marketin alorrean** (3); **musikaren alorrean** (5); **nazio eraikuntzaren alorrean** (3); **nazioarteko alorrean** (5); **ortografia alorrean** (5); **poesiaren alorrean** (3); **politika alorrean** (4); **politikaren alorrean** (6); **politikoaren alorrean** (4); **segurtasun alorrean** (3); **segurtasunaren alorrean** (4); **sexuaren alorrean** (3); **teknologia alorrean** (4); **teknologiaren alorrean** (3); **zerbitzuen alorrean** (5); **zientziaren alorrean** (5); **zientzien alorrean** (8)

ahalgarriaren alorretik (3); **ahalgarriaren alorretik at** (3); **alorreko aditu** (3); **alorreko arduradun** (4); **alorreko beste** (4); **alorreko enpresa** (3); **alorreko enpresak** (5); **alorreko enpresek** (6); **alorreko eragile** (3); **alorreko hainbat** (6); **alorreko lehen** (3); **alorreko neurriak** (3); **alorreko profesionalei** (3); **alorrekoa da** (3); **alorrekoak ere** (3); **alorretan bezala** (6); **alorretan egin** (5); **alorretan erabiltzen** (3); **alorretan ere** (9); **alorretan eta** (3); **alorretik at** (8); **alorretik atera** (3); **alorrez alor** (10); **autogintzaren alorreko** (3); **beste alorretan** (13); **beste alorretan ere** (3); **beste hainbat alorretan** (10); **bestelako alorretan** (3); **bi alorretan** (3); **dagozkien alorretan** (3); **diren alorretan** (3); **edozein alorretan** (4); **ekonomia alorretan** (4); **elikadura alorreko** (4); **emakumearen alorreko** (3); **energia alorreko** (4); **entzunezkoen alorreko** (3); **eraikuntza alorreko** (7); **erlijio alorreko** (3); **eta alorretako** (3); **eta ekonomia alorretan** (3); **eta kultur alorretan** (3); **gainerako alorretan** (7); **hainbat alorretako** (13); **hainbat alorretan** (39); **hainbat alorretan ere** (3); **hainbat alorri** (3); **hezkuntza alorreko** (3); **hiru alorretan** (4); **ikus entzunezkoen alorreko** (3); **irakaskuntza alorreko** (6); **justizia alorreko** (3); **kultur alorretan** (3); **kultura alorreko** (4); **kulturaren alorretan** (3); **osasun alorreko** (8); **politika alorreko** (3); **zein alorretan** (4); **zenbait alorretan** (19); **zerbitzuen alorreko** (3); **zientzia alorreko** (5)

---

alorlan *(orobat **alor lan**)* *iz* alorreko lana.

Gogoan dut nola, Leitzako errege erreginak alimaleko **alorlana** argitaratu berri zuela eta, zoriontzera joan nintzaionean, idazleak, xalo-xalo, "bizi naizen herria ezagutu nahi nian" esan zidan. Patziku Perurena

Egunero bezala, badoa eguerdian Matteo **alorlanetik** bazkaltzera etxera, eta han ikusten du esku eta hanka gabeko mutiko gizajoa, dena euliz estalia, izerdi putzutan! Patziku Perurena

Beraz erreka behar zuten baitezpada kurutzatu **alor lanetara** joaiteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

alorta *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* *iz* fruitua.

Aurrerapenak atzera utzitako berdurak eta igaliak bere berezko balioaren kategoriara jaso behar eta honen lortzeko bide bitxia zabaltzen ari dira Argentinan: ortuari eta **alortak** zatituta, jateko pronto, gozokiak bailira eskaintzea. ETC-prentsa

---

alortu, alor(tu), alortzen du *ad* alorretan banatu.

Euskara **alortuta** dagoela uste dugu, sektorizatuta. Berria - Harian

---

alotropia *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)* *iz* kimikan, gai kimiko batek egoera desberdinak presentatzeko duen gaitasuna.

Alotropia zenbait elementu kimikok egiturazko ezberdintasunen ondorioz forma bi edo gehiago hartzeko duten gaitasuna da. ETC-entziklopedia

Ia metal guztiek polimorfismo edo **alotropia** propietatea erakusten dute: kanpoko presioaren eta tenperaturaren arabera egonkorra den kristal-egitura aldatzea. ETC-entziklopedia

Polimorfismoa edozein material kristalinotan aurki daiteke, polimero, mineral edo metaletan eta **alotropiari** lotutako fenomenoa da. ETC-entziklopedia

Karbonoaren **alotropia** bat da grafenoa, eta argia material horren gainean proiektatu dute ikerlariek. ETC-prentsa

Zenbaitetan, elementu kimikoetan, adibidez, metaletan, polimorfismoaren fenomenoari **alotropia** ere esaten zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

alotropiko **1** *izond* kimikan, gai kimiko batek presenta ditzakeen egoeretako bakoitza.

Oxigenoaren forma **alotropikoa** da ozonoa, hiru atomoz osatutakoa (O3). Berria - Gaiak

Oxigenoaren **alotropikoa**. Joseba Sarrionandia

2 irud/hed

Euskal enbaxadore **alotropikoa** izango zara edonon, euskal enbaxadore **alotropikoa** ostertzean. Joseba Sarrionandia

Eta hobe horrela, ikusten dut tipo bat eta, dzanga, hau Mafaldaren **alotropikoa** da pentsatzen dut, edo beste hori Robert Falcon Scotten **alotropikoa**, edo beste hura pinguinoaren **alotropikoaøø.'** Joseba Sarrionandia

---

alotropo *(corpusean ez dago; ETCn **62** agerraldi) iz* elementu kimiko batek izan ditzakeen forma molekular desberdinetako bakoitza.

Karbonoaren **alotropoak**: grafitoa, diamantea eta fulerenoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bolumen-hedapen hori dela medio, eztainu zurizko metala desintegratu egiten da eta **alotropo** grisaren hauts lodi bihurtzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Elementu jakin baten formen aldaera guztiak ezagutzea komeni zaigu -alegorikoki, elementuaren sasoi deitu diezaiekegu, baina **alotropo** esaten zaie berez-; izan ere, aldaerak ez ezagutzeak nahasbidera eraman gaitzake. ETC-zientzia, zuzenbidea

Substantzia elementubakarren kasuan, formula definitua duten **alotropoak** dagokien azpiindizea jarriz formulatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oxigenoaren kasuan, forma atomikoaz gain, forma molekular ezberdinak (**alotropoak**) erakuts ditzake (O2 eta O3); hortaz, forma atomikoan (O) badago, monooxigeno izena erabiliko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Forma bakoitza elementu horren "**alotropoa**" dela esan ohi da. Esaterako, karbonoak bi **alotropo** arrunt dauzka: diamantean atomoak kristal-egitura tetrahedrikoan antolaturik daude, eta grafitoan sareta hexagonalez osatutako orrietan lotuta daude. ETC-entziklopedia

Diamantea karbonoaren **alotropo** bat da, non karbonoaren atomoak kristal-egitura kubikoaren aldaera batean kokatuta dauden. ETC-entziklopedia

Hiru **alotropo** dauzka: alfa, beta eta gamma. ETC-entziklopedia

---

aloz *iz iz* tolesa, izurra. ik **azpildura**.

Nahi dutena esango dute Saba jaunaren kontra, ni ez naiz inoren bihotz **alozetan** sartu zale, baina zaldun prestua da goitik behera, eta, niretzat behintzat, horrexek balio du. Anjel Lertxundi

---

alozdun *izond* tolesduna.

Hegoaldean hazi ziren biak, jolas parke zaharretik gertu, elkarrekin joan ziren eskolara eta institutura, eta ondoren biak joan ziren Eisenhower-era, eta han, ahal izan zuteneraino, irakasle berak hautatu zituzten, batak bestearen alkandorak eta jertseak eta galtza **alozdunak** erabiltzen zituzten, eta neska berberekin atera eta larrua jotzen zuten. Koro Navarro

---

alozinesia *iz* higidura nahasmendua, mugitu nahi den soin atalaren ordez haren simetrikoa mugitzean datzana.

Aspaldian jakin nuen **alozinesiaren** berri; badakit liburuak begiratzen, badakit haiek esaten dutena neureganatzen. Karlos Linazasoro

---

alpaka[1] **1** *iz* Hego Amerikako mendietan bizi den ugaztun hausnarkaria.

Pisu gutxiko **alpaka** da. Xabier Paya

2 *iz* animalia horren ileaz eginiko ehuna.

Ez zen gehiago arduratu bere aitaren abenturez, zeina gizon txiki hautsez bete bat zen, txano batez eta **alpakazko** berokiaz jantzia. Koro Navarro

---

alpaka[2] *iz* kobre, zink eta nikelezko aleazioa, zilarraren kolorekoa.

"Sakelako erlojua oparituko zioat -pentsatu zuen bere kabutan-, erloju ona duk, zilarrezkoa, ez **alpakazkoa** edo brontzezkoa, beste batzuk bezala; ez zebilek lar ondo, baina konpondu egingo dik. Jose Morales

Erantzunaren zain egon gabe, **alpakazko** labearen estalkietako bat altxatu zuen. Karlos Zabala

---

alpana *iz*

Alpana: pitrailen luzera mozteko erabiltzen zen sega. Herria

---

alpanalari *iz* ogibidez alpana erabiltzen duen pertsona.

Hoien aita, Saint-Jean Aguer, **alpanalaria** (1) zen eta Etxarriko mezakantatzaile. Herria

---

alpapa **1** *iz* argi-belarra, luzerna *(Medigaco sativa)*.

Alpapa atera du, eta hortzaka eginda kilkerra bereizi. Pako Aristi

Orain, beherago, gari eta **alpapa** sailetara hurbiltzen gara -etxaldeak, arrantxoak, larre emankorrak ditugu begien aurrean-, baina oraindik ere, larizio gorrixka ere bada nonahi. Xabier Olarra

Ilobaren berritu beharra: haren eraginez, **alpapa** eta ahuntz-larruak esportatzeari utzi, eta inportazioetan espezialdu ziren, bertan zen portuges tropari begira: arroza, whiskia, tabakoa... Pablo Sastre

Lurraren kolorea, **alpaparen** eta ogiaren usaina. Juan Garzia

2 ***itsas alpapa*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Itsas alpapa edo itsas medikagoa ("Medicago marina") "Medicago" generoko lekalea da, Mediterraneoko arroan jatorria duena. ETC-entziklopedia

---

alpargata *iz* espartina, abarketa.

Txapelak, kaikuak, **alpargatak**, zahatoa, zapiak, kamisetak, Euskal Herriarekiko lotura agerian uzteko moduko jantziek argi erakutsi zuten euskal kolektibitateko kideek haien identitatea lau haizetara zabaltzeko nahia, beharra. Berria - Euskal Herria

Nere eskarpinei, beste zenbait lekutan, **"alpargatak"** esaten die euskaraz ere. Patziku Perurena

---

alpargatadun *iz* alpargatak janzten dituena.

Manifestu Komunistaren azaleko Karl Marx hura Euzkadi euskaldunen aberria dela esan zuen eta barrote atearen bestaldetik begiratzen zigun Sabino Arana **alpargatadunaren** eitekoa egiten zitzaigun. Joseba Sarrionandia

---

alpargateru alpargatak egiten edo saltzen dituen persona.

-Untzain, **alpargateruaren** semearen gainean -erantzun diote beste biek batera. Edorta Jimenez

---

alpende *iz* estalpea.

Arratsa erortzen ari den arren, gelako argiluna ez litzateke hain trinkoa izango **alpendearengatik** ez balitz, **alpendeak** argi zenitalari bidea ixten dio, baita egun argietan ere. Jon Alonso

---

alper[1] **1** *iz* nekazaritzan, lurra zapaltzeko erabiltzen den tresna.

Eta beronen atean etxeko **alperra** : ardatzetik burdinazko urkuluaz eta pertikaz hornitua. Txillardegi

Ordea, leku hori, partez edo osorik betelanez osatutako lurra bada, arreta handiz sendotu beharko da **alperra** pasatuz. Santiago Iruretagoiena

2 ***alper-harri***

Orain ez dago "bideko"rik, gasoilez dabiltzan traktoreek ordezkatu dituztelako; zoragarriak ziren, ordea, lurrunez funtzionatzen zuten zapalgailuak bezalaxe eginak, baina aurreko **alper-harria** gabe. Koldo Biguri

Harrigarria bai, harlandutzar haiek haraino garraiatu izana, gurpila ezagutu gabe, eta beraz, ezta **alper-harria** ere, noski. Joxe Austin Arrieta

---

alper[2] ik **alfer**.

---

alperrik ik **alferrik**.

---

alperrikako ik **alferrikako**.

---

alpertu ik **alfertu**.

---

alpetar **1** *izond* Alpeetakoa, Alpeetan bizi dena.

Handik gora, soilik landare **alpetarrak**, ez zuhaitzak (erreparatu, nola landaredi goitar horri **alpetarra** deitu zitzaion, orduan mendi altuagorik ezagutzen ez genuelako). Pello Zabala

2 (pertsonez mintzatuz)

Lapurtarrek jokalari guztiekin jokatu ahal izan zuten lehen aldiz, baina, halere, **alpetarrak** gehiago izan ziren eta 2-4 gailendu ziren. Berria - Kirola

Badaezpada tentuz hartzeko aurkaria zen Grenoble, baina **alpetarrek** ez dute inoiz Miarritzeren laugarren garaipena arriskuan jarri. Berria - Kirola

Jokalari handiak dituzte **alpetarrek**, baina Hormadi jokalari bat gutxiago eta bi gutxiago zituela baliatu zuten 2-0 aitzineratzeko. Berria - Kirola

Barda jokatutako partidari dagokionez, **alpetarrek** ederki erakutsi dute nolako maila duten, sailkapen fasean lehen postuan amaitu ondoan Ekialdeko multzoan. Berria - Kirola

Alpetarrek jokalari garrantzitsuak fitxatu zituzten hastapenean: Meunier, Amar, eta Forsell eta Bayon finlandiarrak. Berria - Kirola

3 ***alpetar basahuntz*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Alpetar basahuntz Alpeetako basahuntza: "Capra ibex". ETC-entziklopedia

Garai honetakoak dira 1.000-1.400 metrora dauden mendiko babeslekuak, non ehiztariak udazkenean joaten baitziren **alpetar basahuntza** harrapatzeko. ETC-entziklopedia

Bere taxonomia zalantzazkoa da, batzuek **alpetar basahuntzaren** ("Capra ibex") azpiespezietzat jotzen dutelako. Hala ere, badaude bost azpiespezie dituela esaten dutenak. ETC-entziklopedia

4 ***alpetar belarrihandi*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Belarrihandi grisarekin gertatu bezala, honen itxura "P. auritusenaren" oso antzekoa da. **Alpetar belarrihandiaren** sabelaldea ere zurixka da. ETC-entziklopedia

5 ***alpetar eski*** *(corpusean ez dago; ETCn **56** agerraldi)*

Alpetar eskia edo jaitsierako eskia eskiaren modalitate bat da. ETC-entziklopedia

I. Munduko **Alpetar Eski** Txapelketa Alpeak Alpeetako Mürren (Suitza) herrian ospatu zen, 1931ko otsailaren 19a eta 23a bitartean, Nazioarteko Eski Federazioak (NEF) eta Suitzako Eski Elkarteak antolatuta. ETC-entziklopedia

Luge, bobsleigh eta **alpetar eski** ekitaldiak Xiaohaituo mendialdean egingo dira, Yanqing konderrian, Beijing erdialdetik 90 kilometrotara. ETC-entziklopedia

Akrobaziazko eskia **alpetar eski** edo eski alpetarraren modalitate bat da, non eskiatzaileek saltoak eta trukoak egin behar dituzten. ETC-entziklopedia

Mendi elkarte honek hartu zuen nolabait Ski Club Tolosanoren lekukoa: aurrekoek egin ohi zuten moduan **alpetar eskia** praktikatzen hasi, baina gerora landan zeharko eskira pasa ziren. ETC-prentsa

Alpetar eskian jarduteko irteera antolatu du Besaidek apirilerako. ETC-prentsa

6 ***alpetar kakalardo adarluze*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Alpetar kakalardo adarluze ("Rosalia alpina"). ETC-entziklopedia

7 ***alpetar marmota*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Alpetar marmota edo Pirinioetako marmota ("Marmota marmota") Europan aurki daitezkeen bi marmota espezietan handiena da, baita gure kontinenteko karraskaririk handiena ere. ETC-entziklopedia

8 ***alpetar orogenia*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Alpetar orogenia Mesozoikoaren bukaeran eta Zenozoikoan zehar, Europan, Afrika iparraldean eta Asian barrena, Afrikako, Indiako eta txikiagoa den Cimmeriako plaken eta iparraldeko Eurasiako plakaren arteko konbergentziaren ondorioz garatutako orogenia da. ETC-entziklopedia

9 ***basahuntz alpetar*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Basahuntz alpetar eta chamois ugari ikusi ditugu, larreetan lasai bazkatzen. ETC-prentsa

Zenbait animalia espezie desagertu edo desagertzeko zorian suertatuko ziren -ugatza, **basahuntz alpetarra**, sarrioa, etab-. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gurdi batek lagundurik, ordezkaritza honek Tragelaphus kudu bat edo **basahuntz alpetar** bat dakarte, larruekin jantzita daude, baina ez dira belzkarak. ETC-entziklopedia

10 *eski alpetar* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Eski Alpetarra: Eski-estazioetan praktikatutakoa. ETC-entziklopedia

Giuliana Chenal Minuzzo (Italia, **eski alpetarra**), zin olinpikoa kirolari guztien izenean esan zuen lehen emakumea izan zen. ETC-entziklopedia

Neguan oso popularrak dira iraupeneko eskia eta telemark eskia, eta azken hamarkadetan, kalitate handiko **eski alpetarra** garatu da kostaldeko mendikatean eta Mendi Harritsuetan, baita Shuswap eta Columbia mendietako lur garaietako hegoaldeko eremuetan ere. ETC-entziklopedia

Besteak beste, 1928ko Neguko Olinpiar Jokoak, 1948ko Neguko Olinpiar Jokoak eta 2003ko Munduko **Eski Alpetar** Txapelketa egin ziren Saint-Moritzen. ETC-entziklopedia

Eski alpetarra egiteko irteera antolatu du Murrukixu Mendi Taldeak otsailaren 18rako eta 19rako. ETC-prentsa

Besaide neurrirako eskaintzak prestatzen dabil **eski alpetarra** egitera joateko, hau da, asteburu osoko irteerak, eta baita egun bakarretakoak ere (Formigalera). ETC-prentsa

11 *estai alpetar* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Landarediaren kasuan, bi estai bioklimatiko bereiz daitezke: 2.200 metrotik gorako **estai alpetarra** eta horren azpian hedatzen den estai subalpetarra. ETC-prentsa

4.000 metrora, berriz, **estai alpetarra** hasten da, eta larre argi bat du bereizgarri. ETC-zientzia, zuzenbidea

Estai alpetar eta azpialpetarreko harkaizti kalkareoak dira espezie honen bizilekua txitatze-garaian, udaberri amaieran eta udan. ETC-entziklopedia

12 *marmota alpetar* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Marmota alpetarra 50-58 cm luze da buztanik gabe, eta 13-16 cm-ko buztana izan ohi du, gainerako karraskariekin alderatuta nahiko txikia dena. ETC-entziklopedia

Marmota alpetarrak, hibernatzen duen animaliarik handienak, bost kiloko masa du. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 *orogenia alpetar* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Orogenia alpetarra: periodo tertziarioaren plegamentu organikoa, oraindik gelditu ez dena. ETC-entziklopedia

Kratoiaren hegoaldeko muturrean Sarmazia eoi fanerozoikoko sedimentu eta **orogenia alpetar** sendoen artean lurperatzen da. ETC-entziklopedia

Horren eraginez, Iberiak Europaren kontra talka egin zuen; ordura arte itsas hondoan metatutako sedimentuak tolestu eta kanporatu egin ziren eta Pirinioak eta Euskal Herriko mendiak sortu zituzten (gertaera hau **Orogenia alpetarra** izenaz ezagutzen da). ETC-zientzia, zuzenbidea

Kretaziko garaia amaituta, geologoek **orogenia alpetarra** deritzoten fenomenoa gertatu zen eta, ondorioz, plaka iberiarraren oinarriak tolestu eta altxatu egin ziren. ETC-prentsa

---

alpinismo *iz* mendiak eskalatzean datzan kirola.

Arlo askotara jo baitzuen San Martinek lanera, jakin-minak eta kulturaren inguruko kezka biziak gidatuta: poesia, hizkuntzalaritza, mendizaletasuna, etnografia, arkeologia, **alpinismoa**, euskal kultura, kultura oro har. Berria - Kultura

Eskalada eta **alpinismoaren** historian ohorezko tokia du Destivellek. Berria - Kirola

Joan zen urtean Henry Bordeaux mintzatu zen bertan **alpinismoari** buruz. Monika Etxebarria

Xabier Ormazabali gazte-gaztetatik piztu zitzaion **alpinismorako** grina. Berria - Kirola

---

alpinista *izond/iz* alpinismoa praktikatzen duena.

Euskal Herriko mendizale, eskalatzaile eta **alpinisteri**, bai-eta orokorkiago mendia maite duten guzieri eskainia da. Herria

Alpinista batek eztul egiten duela, eta elur-jausia abiarazten du. Josu Zabaleta

Haietako bakar batek ere ez zuela beragandik hartu mendirako grina, Gino kenduta, anaia zaharrena, **alpinista** bikaina baitzen eta tontor zail-zailetara igotzen baitzen bere adiskide batekin. Fernando Rey

Lafaille **alpinista** zaildua dela diote, eta halako egoeretan eskarmenturik baduela. Berria - Kirola

Mikel Zabalza iruindar **alpinista** Himalaiarat joango da negu huntan, zortzi milaz goitiko Broad Peak gailurra igotzera. Herria

Jean Christophe Lafaille **alpinista** frantziarra galduta dago Makalu mendian, Himalayan. Berria - Kirola

Alpinista-txano berde argiko gizon hura zen agian? Fernando Rey

Mikelen burutik irudiak bata bestearen atzetik igarotzen ziren: auto bat txiki-txiki eginda, Luis lehengusua, Otxarkoagako auzo elkarteko lehendakaria, San Frantziskoko jende multikolorea, Aitor kazetari **alpinista**, Dionisosen ardoak, espageti erreak. Unai Iturriaga

---

alpino 1 *izond/izlag* Alpeetako, Alpeei dagokiena.

Badira italierarekin zerikusi gutxi edo batere ez duten hizkuntzak entsaladaren konposizioan: Aostan eta Piamonteko Alpeetan, italieraz gainera, frantsesa eta franko-okzitaniera hitz egiten dira; okzitaniera, Piamonteko Alpeetan eta Calabriako komunan; alemana, Alto Adigen eta hainbat lurralde **alpinotan**. Anjel Lertxundi

Eremu txikian, gune atlantikoak, mediterranearrak eta **alpinoak** (Pirinioak) daude Euskal Herrian, Arraza **"alpinoa"**, esklabo perfektua. Berria - Gaiak

Eski **alpinoa**, super erraldoia (giz.). Berria - Harian

Eski **alpinoa**: Konbinatua (gizonezkoak). Berria - Harian

Abiadura patinajea pista laburrean, eski jauziak, eski **alpinoa**, iraupen eskia. Berria - Harian

Inork ez du horrelakorik lortu eski **alpinoan**. Berria - Kirola

Millerrek eski **alpinoko** bost probatan domina irabazteko aukerak zituen, baina esku hutsik itzuli da AEBetara. Berria - Kirola

Plazaren erdian, erresistentzia gogorarazten duen brontzezko eskultura handi samar bat, **alpino** jantzian dauden soldadu batzuekin. Anjel Lertxundi

2 *eski alpino*

Akrobaziak eta **eski alpinoa** uztartzen ditu eski artistikoak, eta esparru horretan Euskal Herriak badu zer erranik. Berria - Kirola

Kroaziarrak, berriz, Bad Kleinkircheimgo super-erraldoia irabazi zuen, eta **eski alpinoko** bost diziplinetan irabazi duten hiru eskiatzaileetako bat bilakatu da. Berria - Kirola

Aamodt eta Kostelic Neguko Olinpiar Jokoen historian sartu dira, ez baitu beste inork **eski alpinoan** urrezko lau domina irabazterik lortu. Berria - Kirola

3 *eskiatzaile alpino* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Olinpiar Jokoetan domina gehien irabazi duen **eskiatzaile alpinoa** da Kostelic. ETC-prentsa

Lindsey Caroline Vonn, jaiotza-izenaz Lindsey Caroline Kildow, estatubatuar **eskiatzaile alpino** ohia da. ETC-entziklopedia

4 *klima alpino* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Mendialdeko klima (baita goimendietako klima edo **klima alpinoa** ere) eskualde menditsuetako klima mota da, zona klimatikoa edozein delarik ere. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eski alpinoa** (28); **eski alpinoan** (6); **eski alpinoko bost** (3)

alpiste *iz adkor* jatena.

Enpresari txikiak sar diezagukeen ziria askozaz ere txikiagoa da multiestatalek egin izan ohi dizkiguten iruzurrak baino: dendari koxkorrak gaurko **alpistea** irabazi du baina biharkoa eskuratzeko hortxe egon beharko du, engainatu duenez, berriro etorriko ez zaion bezeroaren zain, alferrik. Edorta Agirre

Inoiz, ohiko produktuekin osatzen du bere eskaintza (kolakao, letxu eta tipulak, umeentzako litxarreriak), eta, aitor dezagun, bere **alpiste**-bidea. Edorta Agirre

-Ez, gero beti **alpistea** erosten ibili beharra dago eta. Jon Maia

---

alpore *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* lurruna.

Alporeak aurreko errepide hutsa eta galsoroak lausotzen zituen, intsektuen hegalen marruskadurek eremu osoko gainerako soinuak zanpatzen. ETC-literatura, saiakera

Handik aurrera bi galsoro horitu ageri ziren alde banatan, biak aspaldi segaz joak; bien artean, **alporeak** lausoturik, muino apal bat zegoen, eta pinudi bakandu batek inguratzen zuen haren hegala. ETC-literatura, saiakera

Lurra du ihintztatzen gatzhilen **alporez**. ETC-literatura, saiakera

---

alportxa *iz* telazko zerrenda sendoa, bi muturretan bi boltsa eratzen dituena.

Hiria mendean hartzen duen muinoaren gaineko orube abandonatura heldu zirenean, Gorkak itsuaren **alportxa** zabaldu, eta barruko dirua ateratzeari ekin zion mantso-mantso. Patxi Iturritegi

Euskal Herrian pausatu dut beraz ondarrean nere **alportxa**. Piarres Aintziart

Kabina barrutik larruzko **alportxa** eskuratu, eta au revoir! Patxi Iturritegi

Mendian gora joatean, edozein **alportxa**, den arinena ere, harkaitza bezain zama astuna bihurtzen da. Elena Touyarou

Urria bukatu da ekarriz larrazken itxura goxoa; gure usozaleak ilun aire batekin dire menditik jausten, **alportxa** arinxko, beti bezala biharamunaren itxaropenaz gaindituak. Herria

Arnaldok bere **alportxatik** hartu zuen bere partea, gaineratekoa ilobarendako zuen, han, egunekoaren puxka bat hobetzeko, Orreagako gainetan den oihan haundian bizi baitzen, urdezain. Michel Oronoz

Ahmetek bere **alportxetatik** ogia eta belar-usaineko gazta atera zituen. Fernando Rey

---

alproja **1** *izond* pertsonez mintzatuz, alferra edo zabarra.

-Emazteak egin zuen -jarraitu zuen Pliushkinek-, baina giltzain **alproja** horrek ez du batere zaindu, itxi gabe utzi zuen botila; gizatxarra ez bestena! Jose Morales

Nozdriov zen nor hura, eta esan gabe doa bereak eta asto beltzarenak hartu zituela, hala nola hartzen baititu soilik sindiku **alproja** batek edo kotxezain batek kapitan zaildu eta asko bidaiatu batengandik. Jose Morales

Timoshka eskribauak bete zuen haren tokia, baina administratzaileari buruzko ikerketa bat egitera bidalia zuten, administratzailea mozkorra, **alproja** eta lotsagabea zelako. Jose Morales

2 (izen gisa)

Baina maltzurkeria besterik ez zerabilek **alproja** horrek. Jose Morales

Alproja galanta hi! Jose Morales

Ea, orain hoa janztera, segituan izango nauk berriro hirekin: errieta egin behar zioat administratzaileari, **alproja** galanta duk eta! Jose Morales

Ez da gisakoa hura bezalako gizon bat lapur eta **alprojekin** nahastea! -esan zuen printzeak sutsuki. Jose Morales

3 (izenondoekin)

Alproja hutsa haiz! Jose Morales

Garaile ustekoak **alproja** zikin batzuk besterik ez dira eta itxuraz galtzaile direnak edota bizitza gordinari hagina sartu ezinik dabiltzanak izaten dira zintzoenak. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alproja bat** (7); **alproja batek** (4); **alproja eta** (5); **alproja galanta** (7); **alproja galantak** (4); **alproja halakoa** (3); **alproja hark** (7); **alproja hori** (10); **alproja horrek** (11); **alproja horri** (3); **alproja hutsa** (9); **alproja hutsa da** (4); **alproja taldearen** (3); **eta alproja** (5); **zen alproja** (4)

---

alprojakeria *iz* alprojari dagokion ekintza.

Gainerakoek ere ospatu zituzten Pernando Amezketarraren **alprojakeriak**, eta oheratzera joan ziren. Koro Navarro

Kelleyk eta Deek elkar ezagutu zutenean, baten **alprojakeria** eta pobrezia bestearen etsipenarekin eta miseriarekin elkartu ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Txorimaloa, **alprojakeriatik** eta ustelkeriatik babesteko tresna. Xabier Olarra

Haren historia ezaguna zen; sarjentu batekin, neska haren aitarekin, bizi ondoren, alemaniar erlojugile batekin egon zen ezkonduta, harik eta hark, bere emaztearen **alprojakeriaz** asperturik, etxetik kanpora ostikoz bota zuen arte. Josu Zabaleta

---

alprojakume *iz adkor* alproja.

Alprojakumeak halakoak!-ekin zigun purrustaka Lambertek-. Mirentxu Larrañaga

---

alprojatxo *izond adkor* alproja.

Bere ume **alprojatxoak** gehiegi maite bazituen, ez zen bere errua. Julen Gabiria

"**Alprojatxo** hori", esan zuen barrez Dursley jaunak etxetik irtetean. Iñaki Mendiguren

-**Alprojatxo** honek ere ahal duen guztia irabazi nahi du, bere aitak bezalaxe. Iñaki Mendiguren

---

alprojazar *iz adkor* alproja galanta.

Putakume hori, orain ere: 'Non sartu ote da **alprojazar** hori,' ibiliko dun. Pablo Sastre

---

alprojazulo *iz adkor* alproja galanta.

Lehengo egunean **alprojazulo** horretara sarrarazi gintuzun eta orain... Sonia Gonzalez

alsaziar *(orobat **altsaziar** g.er.) izlag/izond/iz* Alsaziakoa, Alsaziari dagokiona, Alsaziako biztanlea.

Haren berri eskatu nuenean, animalia hura Moro zela esan zidaten, etxeko artzain **altsaziarra**, nire aurreko bisitaldian ikusi nuen berbera. Bernardo Atxaga

Behar da erran Hapa Hapa-ko lagunak arras talendu handiko musikariak dituela: Bristol eskualdeko Dominic Earl inglesa, Pierre Hartmann **alsaziarra**, Kiki Graciet baionesa, Kristof Ithurritze uztariztarra eta Didier Etxeberria ezpeletarra. Herria

Estrasburgokoa da Yves Meyer, **alsaziarra**, eta Euskal Herriarekin, euskararekin eta euskaldun batekin maiteminduta dago. Berria - Harian

Bretoiak, itsasora ohituagoa **alsaziarra** baino, itsasontzi bat ikusi du badian gelditua. Felipe Juaristi

Hor ziren soldado batzu, aleman edo **altsaziarrak**, Oradour-en zirenak bainan ez hobendunak. Herria

", galdetu du **alsaziarrak**. Felipe Juaristi

Alsaziarrak, Bordeleko ardoa, eskuak bete botila bai. Felipe Juaristi

Bere entzule ikasiek xeheki jasotzen dituzte beren dialekto aleman-**alsaziarrean**. Joan Mari Lekuona

Nire atzean Ottok, Bavariako sukaldari **alsaziarrak**, isilean itxi zuen atea. Alberto Ladron Arana

Bi zakur **alsaziar** heldu dira aldats behera galapan. Joseba Sarrionandia

Bazuen, harekin, **alsaziar** lagun bat, hain xuxen, jantzien sailean lan egiten zuena. Eneko Bidegain

Ama, berriz, Annie Parmentier, esan dudanez, emakume horaila da, begi-urdina, **alsaziar** petoa, garai hartan ederra oraindik. Ramon Saizarbitoria

Marcel Martinen erru bakarra saltxitxa saltzaile itxura zuen **alsaziar** arrunt harekin oheratzea izan omen zen. Ramon Saizarbitoria

---

alsaziera *iz* Alsaziako hizkuntza germanikoa.

Batzu, bretoin eta **alsazieraz**; besteak okzitano, flamandar eta katalaneraz; frantsesez ere bistan dena, arabiar eta espaiñolez, korsikeraz edo portugesez berdin. Herria

Euskal Herrian ikastolak sortu ziren moduan, Alsazian badago **alsazieraz** ikasteko eskolarik? Berria - Harian

Frantsesa, espainiera, ingelesa, alemana eta **alsaziera** (alemanaren dialektoa) dakizkien arren azken bi horiek ulertu egiten ditu, euskalduntzat du bere burua. Berria - Harian

Azpimarratu behar da, Frantziako eskualde hizkuntza guztien artean, **alsaziera** aparte utziz, euskara dela berreskurapen hasiera bat daukan bakarra. Berria - Euskal Herria

---

alta[1] 1 *ipar* “haatik, bada; beraz; izan ere”, edo “hala ere; nahiz eta”-ren esangura eta erabilera bera duen lokailua.

Iranek uranioa aberasteari uzteko konpromisoa hartu zuenean, **alta**, berriz ireki zuten zentrala. Berria - Mundua

Washingtonen arabera, presidenteak dimisioa eman; **alta**, Aristidek boterea uztera behartu zutela salatu zuen. Berria - Mundua

Frantziak berak ere ez du jatorriko frantses bezala hartzen, **alta** hala delarik. Berria - Harian

Legebiltzarrerako gaurko bozetatik aterako den erakundea lau urteko iraunkortasuna izango duela aintzat hartuta, **alta**, orain abiatzen den aro politiko berrian ordezkatuta egotea espero dute sunitek. Berria - Harian

Alta hitz emana zioten elkarri oldartu zitzaizkiela, duintasunaren eta lekuan lekukoak zirelako aitzakiaz. Itxaro Borda

2 ***alta bada*** *(orobat **altabada** g.er.)* alta.

Alta bada, duela berrogei bat urte, gure Euskal Herri xumea, bere bi nagusiek zinez odolustu ondoan, ehorztera zihoazelarik, jazarri zitzaien bortizki. Piarres Xarriton

Alta bada badakigu heresia ez dela bakarrik krimena, baina menturaz krimen guztietatik larriena, idatzia den bezala aipamenetan. Piarres Xarriton

Alta bada, etikarik gabeko politikarik onar eta eraman ote dezake herri batek, politika xede berri bati lotzeko garaietan gertatzen delarik, 60ko hamarkadan, hain zuzen, gertatu zen bezala gure Herria? Piarres Xarriton

Alta bada, Iruñean, Gasteizen ala Baionan ikasle gazte ginen denbora haietan, gutarik batzuek Alemaniako zelaien berri bazuten jadanik. Piarres Xarriton

Alta, **bada**, objektu baten presentziagatik, gehienetan objektuan denari pentsatu ohi da bereziki. Piarres Xarriton

Alta bada, egiazko oasi bat omen da iturri xoko hori, arratsaldeko eguzki izigarria ahantzarazten diela erromesei, Hontanas urrunegi iduritzen zaielarik. Piarres Aintziart

Alta bada, soldadu euskaldun bat baino gehiago hil zuten buruzagi militar frantziarrek berek, beren aginduei muzin egiteagatik, nabari-nabaria izan arren muzina frantsesez ez jakiteak eragina zela. Markos Zapiain

Alta bada, kontakizunaren hasieratik hori gaueko ikuspenez gertatzen denez, Onqelosek ez zuen zalantzarik bat ere ukan gauezko ikuspen horietan esandako hitzak halaxe, hitzez hitz, emateaz. Xabier Kintana

Alta bada, East Endeko bost laguneko familia batek astean xahutu behar zituen gutxienekoak, honako hauek ziren: alokairua 6 shilling; ogia 4 shilling; haragia 3,6; barazkiak 2,6; ikatza 1; tea 0,9; olioa 0,9; azukrea 0,9; esnea 0,6; xaboia 0,4; gurina [...]. Pablo Sastre

Alta bada, ez nezakeen etxondoa segidarik gabe utz! Daniel Landart

Alta bada, poliziak abisua hartua zuen Christinek senarra hiltzeko gizon egoki baten xerka zebilela eta John Jopkingsi eman zioten agindua, emaztearekin harremanetan jartzeko. Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alta aski** (3); **alta azken** (3); **alta ba** (8); **alta bada** (84); **alta bere** (5); **alta beste** (7); **alta bi** (3); **alta bush** (4); **alta denbora** (5); **alta eman** (3); **alta eta** (4); **alta ez** (48); **alta ez da** (8); **alta ez du** (3); **alta ez dute** (3); **alta ez dutelarik** (3); **alta ez zen** (4); **alta ez zuen** (3); **alta ez zuten** (3); **alta gaurko** (3); **alta gure** (4); **alta hau** (6); **alta hau ere** (3); **alta hauk** (4); **alta hor** (3); **alta hori** (4); **alta lehen** (5); **alta partida** (3); **bat alta** (4); **da alta** (4); **delarik alta** (4); **dira alta** (5); **direlarik alta** (3); **du alta** (5); **duelarik alta** (3); **eta alta** (4); **ez da alta** (3); **ez zen alta** (3); **ez zuen alta** (4); **zelarik alta** (3); **zen alta** (8); **zioten alta** (4); **zirelarik alta** (3); **ziren alta** (3); **zuen alta** (6); **zutelarik alta** (4)

---

alta[2] 1 *iz* senda-agiria.

Astebete egon nintzen kanpaleku nagusian, hogei oheko oihal-dendan, medikurik finena bufalo mandio bateko albaitaria zen hartan, **alta** eman zidaten arte. Harkaitz Cano

Joseba izenekoari herenegun eman genion **alta"**, esan zidan medikuak. Bernardo Atxaga

Kutz doktorea, aldiz, arinki zauritua suertatu zen, eta bere etxean dago honezkero, **alta** eman baititote. Joxemari Iturralde

Atzo eman zioten **alta** medikoa PPko legebiltzarkide Iñaki Oiartzabali. Berria - Euskal Herria

Ez da zulorik egiten, ez da zundarik jartzen, eta minbizi kasu jakin batzuetan ahots-kordetako minbizia kasu, egunean bertan ematen zaio **alta** gaixoari. Berria - Gaiak

2 pertsona bat enpresa, eskalafoi, nomina edo kideko talde bateko kide bihurtzea.

Biharamunean ere Iurretara joan behar izan nuen, telebistako plantillan **alta** hartzeko paperak izenpetzera, telebistako pertsonal buruarekin. Joxerra Garzia

Onuradun izateko betekizunak: Gizarte Segurantzan kideturik eta **alta** hartuta edo horren antzeko egoeran egotea eta urteko errentak 7.954 eurotik gorakoak ez izatea. Berria - Euskal Herria

Gero, kontratua sinatzea, eta dei soil batez **alta** ematea. Aingeru Epaltza

Langabezi saria amaituta beltzean ibili beharra dauka, autonomoetan **alta** emanez gero zulora doa-eta artez. Urtzi Urrutikoeetxea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eman zioten alta** (3)

altabada ik **alta**[1].

---

altaboz *(ETCn 41 agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **bozgorailu** agertzen da)* *iz* bozgorailua.

Hain ozen atera zaio ahotsa ezen saihetsen artean **altaboz** bat daukala iruditu zaion. aingeru guardako bat bezala izango naiz, disko-jogailuaren **altabozak** barruko patioetara aterako ditut bizilagunek nire bildumako kanturik leunenak entzun ditzaten. Pako Aristi

Ez dago **altabozik**, baina badirudi musika horrek haran osoa betetzen duela. Pako Aristi

Imanol deabru, españolista esaten zioten garaian; Imanol jaungoiko, Martuteneko kartzelan kontzertua eman eta **altabozetan** Sarrik eta Pikabeak ihes egitea lortu zutenean; edo Imanol etsai, beldurraren kontrako kontzertu hura antolatu zuenean. Berria - Kultura

'Ura ez da edatekoa, ura ez da edatekoa', ari ziren **altabozetik** haiek. Pablo Sastre

---

altaiera *(corpusean ez dago; ETCn 7 agerraldi)* *iz* Altaiko Errepublikan mintzatzen den hizkuntza.

Altaiera altaien hizkuntza da, turkiar hizkuntzen familiakoa. ETC-entziklopedia

Altaiak Siberian (gehienbat Altaiko Errepublikan eta Altai kraian) bizi den talde etnikoa da. Euren hizkuntza, **altaiera**, turkiar familiakoa da. ETC-entziklopedia

Japoniera eta koreera, itxuraz, hizkuntza zurtzak dira, hizkuntzalari bakan batzuek bat edo biak **altaierarekin** batera taldekatzen dituzten arren. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

altaiko **1** *izond* zenbait teoriaren arabera Asiako erdialdeko hainbat hizkuntza-familiak osatzen duten taldekoa.

Familia horretako hizkuntza gehienek noski jatorrian hizkutza bakarra dute; familia hau, uralo-**altaikoak** esaten zaien multzo zabalarekin erlazionatu dute. Isabel Arrigain

2 *hizkuntza altaiko* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Koreera ere maiz hartzen dute familia horretako kide bakartutzat, eta, familiaren barruan, japonierak eta koreerak hurbilagoko ahaidetasuna izan dezakete elkarrekiko, beste **hizkuntza altaiko** batzuekiko baino. ETC-literatura, saiakera

Salbuespenak, relic eremuak, berriz ere honako hizkuntzak dira: uharteetako zelta, euskara, turkiera eta beste **hizkuntza altaiko** batzuk nahiz ekialdeko hizkuntza uralikoak; turkiera salbu, denak saihetsetako hizkuntzak dira. ETC-literatura, saiakera

---

altaratu, altara(tu), altaratzen *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)* da *ad* asaldatu, aztoratu. ik **alteratu 2**.

Inor ez zen **altaratu** ordea, inork ez zion erantzun, inor ez zuen mindu, inorengandik ez zuen erantzun saminik jaso, inorengan geratu eta inorengana iritsi zen bezalaxe. ETC-prentsa

---

altare ik **aldare**.

alte *iz* zerbaiten ezaugarrien, formaren edo funtsaren aldaketa.

Sintoma fisiologikorik ez zutela zirudien arren, **alterazio** nabarmena izan zuten animaliek izaeran eta jokabidean: lehen bezala beren inguruaz arduratu eta beren ikusmeneko eremuan zegoen edozer kuxkuxeatu eta zirikatu beharrean, geldo eta zozoturik zeuden, edo loak hartzen zituen. Xabier Olarra

Hughlings Jackson hasi zen susmatzen, azken mendean [...] krisialdi psikikoak maiz jasaten zituzten gaixo batzuek, beren nahasmendua agertzearekin batera, **alterazio** bitxiak izaten zituztela pentsaeran eta nortasunean. Xabier Olarra

Errendimendu akademikoan eta adimen gaitasunean eragiten duten buruko **alterazio** eta nahaste neurologiko arinak saihestea da kanpaina honen helburua. Berria - Gaiak

Gure egunerokoan **alterazioak** baditugu, hori gaixotasunen bidez azaleratzen da. Berria - Harian

Luzera toxikotasun izugarria sor dezakete kutsatzaile horiek, eta geneetan **alterazioak** eragiten dituzte; hormonen gisan funtzionatzen dute. Berria - Euskal Herria

Konortea tarteka galdu zuela eta aparatu neurologikoko eskasia eta motrizitatearen **alterazioa** izan duela zehaztu zuen txosten medikuak. Berria - Mundua

Atsegin katastematikoa: gogoaren **alteraziorik** gabeko minik eza. Xabier Amuriza

---

alter ego *iz* pertsona baten bigarren pertsonalitatea edo izaera.

Kritikari batzuek Tennesseeren lanetako emakumeetan, idazle gay gehienon lanetan legez, egilearen beraren proiekzioak, itzalak, **alter egoak** ikusi ohi dituzte. Berria - Kultura

Alter ego horren ispiluan idazleak benetako zein gertaera gura izan duen islatu, eraldaturik bada ere baina islatu azken batean, horra galdera. Edorta Jimenez

Izango da iragan epikoagoak liluratuta, Amical Mauthausen elkarteko lehendakari ohi Enric Marco-k bezala, "horrela jendeak gehiago entzuten didalako", gezurretako **alter ego**-rik asmatuko duenik. Iñigo Aranbarri

Baina egia bada, egingo nuke kontakizuneko irakasle hori Leandroren **alter ego** bat dela; sabeliztunarena egiten duenean bezala jardun zaidala Leandro, bere ahots propioa beste baten ahotan jarrita. Anjel Lertxundi

Ludovic Giuly kapitain txikia da Deschampsen **alter ego** delakoa, taldeari dinamika eta zorroztasuna ematen diona. Berria - Kirola

---

alteratu, altera(tu), alteratzen *(corpusean ez dago; ETCn 183 agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian musika eta medikuntza arloetako adieretarako baino ez da agertzen)* **1** da *ad* aldatu, eraldatu.

Ordena halako bat **alteratu** egin da, berrezarri egin beharko litzateke. ETC-literatura, saiakera

Amerikako herrialde eredugarri horretan infantizidioa ematen da ama batek urtebete baino gutxiagoko bere umea hiltzen duenean, haurdunaldiaren, erditzearen edo edoskitzearen ondorioz bere fakultate mentalak **alteratuta** baditu betiere. ETC-literatura, saiakera

Buruaren tamainari zegokion baino txapel txikiagoak ere proportzioak **alteratzen** zituen, nahiz eta mesede handia egin, bekokitik ia garondorainoko kanal soildua estaliz. ETC-literatura, saiakera

Baina disposizio baten edo ezaugarri kausal baten kontzientzia nire aldetik identikoa al da hori manipulatzeko eta **alteratzeko** indarrarekin, edo nahitaez ematen al dit horretarako indarra? ETC-literatura, saiakera

Patioko erresonantziarena ere izan zitekeen, kartzelan fenomeno naturalak asko **alteratzen** baitira. ETC-prentsa

Hauxe idatzi zuen Fulya Erdemcik: "Gauzen ordena zertxobait aldatzen, mugitzen edo **alteratzen** denean gertatzen dena ikusaraziko digu Maider Lopezek. ETC-prentsa

Leitzaranen, zentral hidroelektrikoetako giza-jardueraren eraginez emaria artifizialki **alteratzeak** ibaien erregimen naturala aldatu eta habitat-baldintzak oso aldakorrak izatea dakar, bertako bizitza zailduz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrenbestez, zenbat eta handiagoa izan suszeptibilitatea, orduan eta handiagoa izango da drainatzerik gabeko esfortzu ebakitzailearekiko erresistentzia, laginaren egitura **alteratzen** da eta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arroka olibinoz eta piroxenoz osatua dago; ez du kuartzorik; oso arraroa da, eta agertzen denean, serpentinara **alteratua** egoten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zearsolok kontu liburuak **alteratu**, kontabilitatea faltsutu eta iruzurra ezkutatzeko frogak ezabatu zituela jakinarazi zuten geroago egin ziren txostenek. ETC-prentsa

Kamerek atxiloketa osoa kontrolatzen dutela dio oharrak, kamerak itzaltzeko edo grabazioak **alteratzeko** aukerarik ez dagoela, eta ikerketa judizialaren kasuan, haien zerbitzura geratzen direla grabazioak. ETC-prentsa

2 da/du *ad* asaldatu, aztoratu.

Hunkitzen, haserretzen, mintzen, eszitatzen, **alteratzen** nauenari buruz... ETC-literatura, saiakera

Zergatik **alteratu** naiz honenbeste, tunelaz atzeko mundua aurrekoa bezain ezaguna eta neurea bazen? ETC-literatura, saiakera

"Haurrak **alteratuta** dabiltza ikastolan" izaten da elurra bota eta geroko esaldia. ETC-prentsa

Nahikoa izan daiteke zertxobait **alteratuak** egotea, bat baino gehiago batera agertzen direnean paziente hori arrisku kardiobaskularreko egoeran egoteko. ETC-prentsa

OLIVER (OFF): Mirandatarren etxean lorezain nenbilela jakingo zuen. Oso **alteratuta** zegoen eta Mireiarekin hitz egin nahi zuen, aita izango nintzela esateko. ETC-telebista

ARANTXA. - (PASKALi, **alteratuta**) Olaiak bazekian! ETC-telebista

TANIA zutitu egiten da, **alteratuta** eta begirada galduta, mahaitik erretiratzeko asmoz. ETC-telebista

3 da *ad* medikuntzan, zerbaiten berezko izaera edo forma aldatu.

Horrek hormona sistema guztia **alteratzen** zuen: kortisona gehiegi ekoizten zuen nire gorputzak. ETC-literatura, saiakera

Egia ere bada sorkuntzarako erabili izan dugula, esperimentu gisa, zure kontzientziak, egoera **alteratu** horretan, zein ahots zeukan bilatu nahian. ETC-prentsa

Bihotzak hainbat kanal ditu organoaren funtzionamendua ahalbidetzeko, eta kanal horiek genetikoki **alteratuta** -gene baten mutazioagatik- daudenean arazoak izaten dira. ETC-prentsa

Emaitza guztiak bateratuz, badirudi mutazio aktibatzaileek jaioberriko diabetesa bi mekanismo kontrajarriren bidez eragiten dezaketela, hots, zelula immuneen erregulazioa **alteratuz** eta beta zelula pankreatikoen disfuntzioa eraginez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mina antzematen duten zuntz ugari ditugu eta mina hartzerakoan nerbio sistema zentralera doazen zelula pila bat **alteratzen** dira. ETC-entziklopedia

Erantzun metabolikoa: proteinen, gantzen eta Karbono hidrato karbohidratoen metabolismoa **alteratzen** da eta Metabolismo metabolismo anaerobiko gehiago egongo da, azido laktiko gehiago ekoiztuz. ETC-entziklopedia

Genetikoki **alteratutako** gizakia, bere botereekin polaritate molekularra kontrolatzen du. ETC-entziklopedia

4 (era burutua izenondo gisa)

Bere burua xarmatzen utzi zuen otsoaren ondorengoek zerebro atrofiatu eta bolumen gutxiagoko bat eta portaera **alteratu** bat heredatu dituzte. ETC-literatura, saiakera

Exosomek tumore-zelulen proliferazioa pizten duten hainbat molekularen garraioa bideratzen dute; lehenengoetariko ebidentziak glioblastoman lortu ziren, exosomak, EGFR **alteratua** -onkogenikoa- zein horren RNAm-a transmititzeko gai zirela frogatzean (Al-Nedawi et al. ETC-zientzia, zuzenbidea

44 Lobulu frontaleko sindromeen gainean medikuntzaren ikuspegitik idatzitakoak abiapuntua Phineas Gageren kasuan badu ere, badira gogamenaren egoera **alteratuen** berri ematen duten lehenagoko deskribapenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezaugarri hauek gurasoek haurraren aurrean modu desegokian erreakzionatzeko aukera gehitu egiten dute, honela zaintzailearen eta semealaben artean harreman **alteratuak** sortuz eta, gerora, haurrarengan jokabide-arazoak agertuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zenbat eta mafikoagoa izan, Lurrazal zona **alteratuetan**, ur molekula (OH) gehiago gorde daitezkela esan nahi du. ETC-entziklopedia

---

alteritate *(ETCn **73** agerraldi, horietatik **42** azken sei urteetan) iz* beste norbait izatearen nolakotasuna.

Norbait mintzatu zait egun batez **alteritateaz**, Serge erakasle laguna naski. Piarres Aintziart

---

altermondialista ik **altermundialista**.

---

altermundialismo *iz* gizarte higikundea, neoliberalismo ekonomikoaren aurkakoa, globalizazioa eta giza garapenaren funtsa ingurumenaren zaintzan eta gizarte balioetan oinarritu behar dela dioena.

Vandana Shiva ekintzaileak kritikatu du zenbait taldek **altermundialismoa** zentralizatu nahi dutela. Berria - Mundua

---

altermundialista **1** *(orobat **altermondialista**) izond* altermundialismoaren aldekoa.

Mugimendu **altermundialistan** gerta litezke horrelakoak. Berria - Euskal Herria

Zer ote da hitz horren gibelean eta horrek deraman **"altermundialista"** izaitea zer den jakiteko gomita bereziak aurkeztu dituzte Lokarriko kideek. Herria

2 *iz* altermundialismoaren aldekoa den pertsona.

Ez dute ustegabetarik hautatu **"altermundialista"** horiek Indiako Bombay hiria beren kongresuarentzat. Bombay hirian, India aldean, ideki den **"altermundialisten"** kongresoak bestelako du soinua. Herria

Munduko Gizarte Foroa egingo da Porto Alegren (Brasil) urtarrilaren 26tik 31ra bitartean.2004ko martxoaren 19a: Europako hiriburu guztietan manifestazioa egiteko deialdia egin dute **altermondialistek**. Berria - Mundua

Munduko herrialde ezberdinetan dauden eta giza eskubideak urratzen dituzten "hesi lotsagarri" guztiak botatzeko eskatu zuten, halaber, **altermondialistek**. Berria - Mundua

3 ***mugimendu altermundialista***

Attac erakundeko Christophe Aguitton bat etorri zen iritzi horrekin: "Erresuma Batuan aurreneko aldiz elkarrekin bildu dira sindikatuetako eta **mugimendu altermundialistako** ordezkariak eta hori berria da hemen». Berria - Mundua

Mugimendu altermundialistan gerta litezke horrelakoak. Berria - Euskal Herria

---

altermundializazio *iz* munduaren globalizazioa giza garapenaren funtsa ingurumenaren zaintzan eta gizarte balioetan oinarritzea.

Altermundializazioaren garaipena, bestelako globalizazioaren posibilitateak primeran irudikatu zituen gertakaria. Txema Ramirez de la Piscina

Indarrak batu behar dira erabakietan eraginkorrak izateko, **altermundializazioa** lokalki laguntzeko", zehaztu zuen. Berria - Euskal Herria

---

alternadore *izond* korronte alternoa sortzen duena.

Hortik, iragazi eta motor **alternadoreetara** bideratzen da, bertan elektrizitatea sortzeko. Berria - Euskal Herria

---

alternantzia **1** *iz* txandakatzea.

Aldaketa fonetikoek parte hartzen duten gramatika gertaera zabalenetako eta ohikoenetako bat dugu gure aurrean: gertaera horri **alternantzia** izena eman zaio. Isabel Arrigain

2 ***kode alternantzia*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***26*** *agerraldi)*

Hori linguistikan **kode alternantzia** deitzen da eta niri oso ongi iruditzen zait. ETC-prentsa

Sailkapen asko daude eta **kode alternantziaren** inguruan eztabaidak daude funtzio pragmatikoak izan behar dituen edo ez. ETC-prentsa

Normalean, noski, aldaketa ez da muturrekoa eta kanpora joaten direnean hiztun horiek euskararen eta erdararen arteko kode-nahasketak edo **kode-alternantziak** egiten dituzte. ETC-literatura, saiakera

Kode alternantziaren arazoa izan daiteke hizpide dugun auzi honen beste ertz bat. ETC-literatura, saiakera

Ahozko erabileran bezala, nahasketa eta **kode alternantziak** ohikoak dira. ETC-literatura, saiakera

Hitz barneko **kode alternantzia** euskara-gaztelaniaren kasuan: ezaugarri fonologikoen azterketa. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

alternatiba *(ETCn* ***14.193*** *agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***aldizkatze*** *ageri da, zenbait kasutarako)* **1** *iz* hautabidea, aukerabidea.

Izan ere, irakasleak, batzuetan, ez zuen ondo aditzen igarritakoa eta, besteetan, **alternatibarik** ezean, guk esandakoa botatzea beste erremediorik ez zuen. Iban Zaldua

Oso lantegi txarra da **alternatibak** asmatzen ibili behar hau, baina txikitatik erakutsi digute ez dela aski ez dugula nahi esatea: jakin egin behar zer nahi dugun, zer izan nahi dugun. Iñaki Segurola

Honek berak nahikoa erakusten du **alternatiben** abiapuntuko bertako desoreka. Joxe Azurmendi

Ikerketa horren ondorioz ateratako **alternatibak** gauzatzeko konpromisoa hartuko du Udalak. Berria - Euskal Herria

IUk indarra izan duen aldiro eskuinari gauzak zaildu dizkio, eta ezkerreko **alternatibak** eratu ditu. Berria - Euskal Herria

Alor horietan zein egoera zegoen ikusi eta **alternatibak** planteatzen saiatu ginen. Berria - Euskal Herria

Baina, itxuraz, enboliak eman aurretik baino zuhurtasun handiagoa zuen, berehala ulertu baitzuen aukera hura hartu edo uztekoa zela, eta ez zegoela beste **alternatibarik** hezurtegia baino. Ramon Saizarbitoria

Horiez beste **alternatibarik** ez dago, hotsen ohiko igorpenari dagokionez. Isabel Arrigain

Langabeziaren eta langileen soldaten beheraldiaren arteko **alternatibari** uko egiteak, izan ere, langile mehatxatuen enpleguaren barne-baldintzei nahiz Iparraren eta Hegoaren arteko konkurrentziaren baldintzei eragitea esan nahi du. Koro Navarro

Muturreko merkatu-ekonomiaren edo merkatu askearen **alternatibarik** ez dagoela diotenei esan beharko litzaieke, Noam Chomsky intelektual zorrotzak hainbat aldiz azpimarratu izan duen bidetik, badagoela merkatu askeko ekonomiarentzat **alternatibarik**. Iñaki Heras

Gerta litekeena da, ordea, hori ez planteamendu txarra bakarrik, baizik ez izatea planteamendurik batere, aldez aurretik **alternatibaren** maneran erabakita aurkezten duelako soluzioaren forma posible bakarra (bai/ez, zernola-ren kontsiderazio gabe ezertarako). Joxe Azurmendi

Ondorioz, eredu nomologiko deduktiboan oinarrituriko azalpenari buruzko teoriari **alternatibak** ugaldu zaizkio: alde batetik, **alternatibak** eremu epistemikoari dagozkion elementuetan soilik oinarrituz (legeak, usteak eta gisakoak); eta bestetik, **alternatibetan** eremu ontologikoari dagozkion osagaiak txertatuz, hala nola ezinbestekotasuna, kausazioa edo bateratzea. Askoren artean

Bere armadarentzat Mendebaldeko teknikaren hastapenak onartzean, jada sartua zuen gaitz askoren hasiera izan zitekeena; hasia zuen kultur iraultza bat, azkenean jemendarrak **alternatibarik** gabe beren biluztasuna Mendebaldeko oihalez egindako jantzi osoz estaltzera eramango zituena. Iñaki Mendiguren

Alternatibak baina, ez dakar alegrantziarik. Iñigo Aranbarri

Irunberrin egin nahi izan zituzten bi urtegien **alternatibatzat** aztertzen hasi zen Ebroko Ur Konfederazioa Itoizkoa. Edurne Elizondo

Ez da, inondik ere, historia tradizionalaren **alternatibazko** "beste (lako) " historia bat. Edorta Agirre

2 (izenondoekin)

Bigarrenik, epistemologia kartesiarrari eman zaizkion erantzun zehatz batzuk hartuko dira kontuan, eta, azkenik, kartesianismoaz haragoko **alternatiba** epistemologikoak erakutsiko dira. Askoren artean

Alternatiba narratiboak proposatu ditut haztamuka, gure fatu propioaren kurba bakar halabeharrezkoa saihestu ezin izan arren. Joseba Sarrionandia

Nahi izatera, "**alternatiba** kritikoez" hitz egin genezake, baina pluralean beti ere. Txema Ramirez de la Piscina

Ez litzateke zuzena, bestalde, ezinbesteko tentsio hori bi **alternatiba** muturrekoen artean erabakitzea: haustura edo traizioarena ("Espiritualak" deituriko XIV. mendeko taldearen ikuspuntua) ala Jainkoak bere probidentziaz erabakia zuen garapen organikoarena (San Bonabenturaren ikuspuntua). Askoren artean

Bertze mundu bat eraiki daiteke, eta Euskal Herrian burutu diren ekimenak, laborantza mailako garapen iraunkorra bezala, liberalismoaren aurkako **alternatiba** zehatzak dira. Berria - Euskal Herria

Kapitalismoaren **alternatiba** eraginkor bat sortzeko oinarriak dira horiek. Berria - Euskal Herria

Hegoaldeko herrialdeetan, aldiz, historikoki errenta baxua izan duten herrialdeak dira, gutxi birziklatzen dute, eta isurketaren aldeko hautua egin dute, **alternatiba** merkeena delako. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**
>
> **alternatiba aurkeztu** (6); **alternatiba bakarra** (29); **alternatiba bat** (52); **alternatiba batzuk** (7); **alternatiba berriak** (6); **alternatiba da** (11); **alternatiba dela** (7); **alternatiba demokratikoa** (13); **alternatiba demokratikoaren** (7); **alternatiba eratzeko** (6); **alternatiba gisa** (24); **alternatiba hori** (6); **alternatiba izan** (27); **alternatiba izan nahi** (16); **alternatiba izango** (12); **alternatiba izango den** (7); **alternatiba izatea** (7); **alternatiba izateari** (7); **alternatiba izateari uko** (6); **alternatiba izateko** (17); **alternatiba politiko** (7); **benetako alternatiba** (14); **beste alternatiba** (13); **da alternatiba** (16); **duen alternatiba** (7); **eajren alternatiba** (11); **eta alternatiba** (31); **ezkerreko alternatiba** (10); **gobernu alternatiba** (10); **gobernuaren alternatiba** (7); **kas alternatiba** (10); **nazionalismoaren alternatiba** (10); **ppren alternatiba** (8); **upnren alternatiba** (12)

---

alternatibista *izond* alternatibaten aldekoa.

Mentalitate **alternatibista** edo manikeoaren propioa izaten da, errealitate osoa bi poloren arteko oposizio eta borroka bezala ikustea (Jainkoa/Deabrua, Ongia/Gaizkia). Joxe Azurmendi

Pentsamendu **alternatibistarentzat** erroak edukitzea espirituak kateak edukitzea da nonbait: gero, batentzat, burdinazko atxikitasun horri sendo eutsiz egiten gara gizon-emakume jatorrak (Maurras); bestearentzat, burdina horiek apurtuz eta "deserrotuz" bakarrik lortzen dugu egiazki gizatasuna (Finkielkraut). Joxe Azurmendi

Planteamolde **alternatibista** inkisitorea. Joxe Azurmendi

---

alternatibo **1** *izond* beste zerbaiti lehia egiteko agertzen dena.

Bigarren erronka honek eraginkortasun desberdineko hainbat erantzun **alternatibo** sortarazi zituen. Iñaki Mendiguren

Erromatar Inperioaren eta Indiako Britainiar Inperioaren historiak argudia daitezke estatu unibertsal baten eraketa politikoaren bi funtzio **alternatibo** nagusiak hauek direla erakusteko: botere inperiogilearen nagusitasunari eustea, eta desintegratzen ari den gizartearen gorputz sozialean bere parroki estatu izandakoen suntsipen edo kolapsoagatik sortzen den hutsune politikoa betetzea. Iñaki Mendiguren

Sadek liburu honetan bide **alternatibo** bat erakusten du, libreagoa, atsegingarriagoa eta bakoitzaren gurari eta zaletasunekin begirunetsuagoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kalkulu guztiak eginda zeuzkan Aloñak ordurako, ez baitzen alferrik kontaduriako txapelduna, altzari-den-da batean modu profesionalean, eta herriko UDBk, Berdeek eta ezker **alternatibokoek** zerrenda bateratua osatu dute lau departamendutan antolamendu **alternatibo** guztietan, borondatezkoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskarazko filmak erakusteko, sare **alternatibo** bat osatzea da gure nahia. Berria - Kultura

Horregatixe joan zen Granadako eskualde hartara, jakin zuenean bazela inguru hartan mugimendu **alternatibo** bat, gizartearen ohiko bizimoduarekin apurtu nahi zuena: batzuek hippytzat zuten beren burua eta elkarrekin bizi ziren, komuna batean zein bestean. Joan Mari Irigoien

Elorrietak uste du borroka ez dela "beste alternatiba bat, baizik eta ELA erakunde **alternatibo** bihurtzen duen lan tresna". Berria - Ekonomia

Bi termino **alternatibo** soilekin, ala elementu diferente eta irregular askoren aniztasun konplexuarekin ulertuko dugu gizadia, kultura, egungo krisia? Joxe Azurmendi

Lockeren Giza adimenari buruzko entseiuak (E) ideien eta zientziaren teoria **alternatibo** oso bat sistematikoki eraikiko du. Askoren artean

Nik ez dut, hemen, eredu **alternatibo** bakarra proposatu nahi. Txema Ramirez de la Piscina

Gizarte eredu **alternatibo** bat nahi dugu, bestelako Euskal Herri bat, non politika ekonomikoa gizartean oinarrituta egongo den. Berria - Harian

Eusko Legebiltzarreko zerbitzu juridikoek egindako txostenak dio SAren zuzenketa ezin dela testu **alternatibo** gisa kalifikatu. Berria - Euskal Herria

Ekonomian sarritan gertatzen den bezala, eztabaida azken finean balioen gainekoa da, ez helburu komunak iristeko erabil daitezkeen neurri **alternatiboen** gainekoa. Koro Navarro

Zenbait autorek, bertuteen sistema **alternatibo** baten defendatzaile gisa aurkezten du Nietzsche. Askoren artean

Zientzia ekonomikoa bere planteamenduen birformulazio bat ikusten ari da, eta gero eta indartsuago ageri zaigu ekonomia **alternatibo** hori, ekonomia ekologikoa alegia, natur baliabide guztiak Ekonomiaren aztergaitzat hartzen dituena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Informazio-iturri **alternatiboen** eskaera gero eta handiagoa da. Txema Ramirez de la Piscina

Argitaletxe **alternatiboa** da, irabazien zati handi bat ongintzazko zereginetan gastatzen duena. Jon Arretxe

Hiri plangintza **Alternatiborako** Bulegoak Pasaian egin duen lanaren bi adibide Ziriza etxea eta Ondartxoko Azkorreta ontziola dira. Berria - Kultura

Lau urte du sortua dela Gatuzain argitaletxea Baionan, liburugintza **alternatibo** bat sortu nahiz, gai sozial eta politikoak frantsesez eta euskaraz plazaratuz. Herria

Garai bateko beren sistema lehiakideak Benetako Jainko Bakarrarengana hurbiltzeko beste hainbat era **alternatibo** direla, ikuspen beatifikoaren hainbat ikuspegi partzial eskaintzen dituzten bideetatik. Iñaki Mendiguren

Hilabete batzuk lehenago era guztiz bidegabean leporatu zidaten plagio afera zela medio nire liburu berria argitaletxe handi batekin atera ezin nuenez, gutxien gutxienez, argitaletxe **alternatibo** batekin ateratzeko aukera kontuan hartzeko iradoki zidaten lagun idazleek. Harkaitz Cano

Gure kultur egitaraua oso duina izan da, baina erakundeei ez zaie interesatu antzoki **alternatiborik** egotea. Berria - Kultura

UDBk, Berdeek eta ezker **alternatibokoek** zerrenda bateratua osatu dute lau departamendutan. Berria - Mundua

Raul Montenegro biologo Argentinarra, Bianca Jagger Nikaraguako ekintzailea eta Errusiako Memorial erakundeak jasoko dute gaur Suediako Legebiltzarrean Bizibide Zuzena saria (Right Livelihood Award), Nobel sari **alternatibo** gisa ezagutzen dena. Berria - Gaiak

Aipatu dudan beste Alemania **alternatibo** horren hiritar ziren Hans eta Anne. Joxerra Garzia

Diru-denbora horrek tiraka bezala zaramatza Ezdakitnongo putzu ikusgarria begiztatzera, mapetako mundua pintarraturik daukaten puntu interesgarri ofizial edo **alternatibo** horietako batera. Iñaki Segurola

Politikaren zeregina une honetan borroka berri hauek hartu eta programa politiko **alternatibo** bat bideratzea da. Berria - Mundua

Jokaera, sentiera eta biziera **alternatiboak**. Iñaki Mendiguren

Alternatiboa oso hitz ederra da; inoiz irudikatu dugun paradisuari atxiki diogun adjektibo xarmangarria: eskola **alternatiboak**, harreman **alternatiboak**, eremu **alternatiboa**, prentsa **alternatiboa**. Txema Ramirez de la Piscina

Begi-bistakoa da eraldatutako materiala eta hura eraldatzeko lanabesak elkarren osagarriak direla, ez **alternatiboak** -ez ordezkagarriak-. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eredu zaharkituaren ukaziotik sortu nahi den modelo arnasberritua da **alternatiboa**. Txema Ramirez de la Piscina

2 (izen gisa)

Antolatzailea Bruselako hainbat **alternatibo** biltzen dituen Louise Paul Boon zirkulua. Edorta Jimenez

3 ***dieta alternatibo*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Dieta alternatiboak, elikagai edo elikagai talde batzuen borondatezko murrizketagatik dieta orekatuaz bereizten direnak dira. ETC-entziklopedia

4 ***energia alternatibo***

Nazio garatuak -erabakitasun handiagoaz (EEE-Japonia) edo txikiagoaz (Estatu Batuak)- erronka hori gainditzen saiatu ziren, energia aurrezteko programak eta **energia alternatiboak** bultzatuz. Koro Navarro

Energia alternatiboak garatzeko ikerketak hasiko dituzte, hain zuzen ere, eta nola egurretik eta laboreetatik etanola atera ahal izateko ikerketak. Berria - Mundua

Hiru sektorek izan dute tirriarik handiena: apainketa eta zurezko etxeko guneek, eta elektrika edo petrolioaren **energia alternatiboak** proposatzen dituzten tresnek. Herria

5 ***eskuin alternatibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Eskuin alternatiboa eskuin politiko eskuineko eta eskuin muturreko ideologiak uztartzen dituen talde heterogeneoari deritzo. ETC-entziklopedia

Baina baita belarrira eskuin muturreko ideiak xuxurlatuko dizkioten ahotsez ere -alt-right edo **eskuin alternatiboa**, haien definizio modernoan-. ETC-prentsa

Post-egiarekin batera, beste eufemismo bat dago boladan, alt-right edo **eskuin alternatiboa** delakoa, faxismoaren mutazio hori zuritzeko erabiltzen dena. ETC-prentsa

6 ***hezkuntza alternatibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Hezkuntza alternatiboa edo hezkuntza ez tradizionala pedagogia tradizionaletik bereizten diren metodo pedagogiko guziak izendatzeko erabiltzen den termino orokorra da. **Hezkuntza alternatibotzat** har daitezkeen hezkuntza prozesu asko daude, eta bakoitzak bere ezaugarri eta oinarriak ditu. ETC-entziklopedia

Hezkuntza alternatiboak (libertarioa, batez ere) lantzen ari dira ikastaroan, besteak beste, Freinet, Illich eta Goodmanen pedagogietan oinarrituta. ETC-prentsa

Eta haien atzean, nagusiki, emakumeak zeuden: "Burujabe izaten hasi ginen: kooperatibak antolatu genituen haurrei **hezkuntza alternatiboa** emateko, eta etxean jakiak prestatzen genituen bisitariei saltzeko". ETC-prentsa

Hezkuntza oso inportantea dela uste dut, baina ez ezarritako hezkuntza, baizik eta gaur egun **hezkuntza alternatiboa** esango genukeena, beste balioak eskaintzen dituen hezkuntza. ETC-literatura, saiakera

7 ***medikuntza alternatibo***

Buruari bueltaka ibili nintzen, eta pentsatu nuen izan zitekeela psikiatrarena baino irtenbide hoberik; bazirela, beharbada, beste aukera batzuk, sendagai kimikoetatik kanpo, **medikuntza alternatiboan**. Juan Kruz Igerabide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **alternatibo bat** (28); **alternatibo bat aurkeztu** (3); **alternatibo baten** (8); **alternatibo daude** (3); **alternatibo eta** (6); **alternatibo gisa** (9); **alternatibo hori** (5); **alternatibo horren** (3); **alternatiboa aurkeztu** (5); **alternatiboa aurkeztuko** (3); **alternatiboa da** (3); **alternatiboa egin** (4); **alternatiboa egiten** (3); **alternatiboa ere** (3); **alternatiboa eta** (3); **alternatiboa izan** (4); **alternatiboak dira** (3); **alternatiboak ere** (3); **alternatiboak eta** (5); **alternatiboak garatzeko** (3); **alternatiboak gizarte** (3); **alternatiboen alde** (4); **alternatiboen arteko** (3); **alternatiborik ez** (3); **azoka alternatiboa** (3); **bide alternatibo** (5); **bide alternatiboa** (4); **bide alternatiboak** (6); **country alternatiboa** (3); **country alternatiboaren** (3); **energia alternatiboak** (5); **eredu alternatibo** (5); **eredu alternatibo bat** (3); **eredu alternatiboa** (4); **eta alternatiboa** (4); **eta alternatiboko** (3); **foro alternatiboa** (3); **foro alternatiboan** (4); **ganbera alternatibo** (3); **ganbera alternatiboa** (3); **gobernu alternatiboa** (3); **gune alternatiboak** (3); **hautagaitza alternatiboa** (3); **iturri alternatiboen** (3); **komunikabide alternatiboen** (7); **komunikabide alternatiboen gazte** (4); **modu alternatiboak** (3); **musika alternatiboen** (3); **nobel sari alternatiboak** (4); **plan alternatiboa** (11); **plan alternatiboa aurkeztu** (4); **testu alternatibo** (9); **testu alternatibo gisa** (4); **testu alternatiboaren** (3); **zerrenda alternatiboa** (3)

---

alternatibotasun *iz* alternatiboa denaren nolakotasuna.

Komunikazioaz mintzo garelarik, ez dago **alternatibotasuna** zerbait iraunkor bezala definitzerik, ingurumariak, subjektuak, gobernuak eta gizarteak aldatu egiten direlako, eten gabe. Txema Ramirez de la Piscina

Alternatibotasunaren etiketapean 70 eta 80ko hamarraldietan mendebaldeko Europako zenbait alderdi komunistak landu zuten eredu komunikatiboak porrot egin zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Zeinuaren inbertsioak ez du **alternatibotasunaren** bermea ziurtatzen. Txema Ramirez de la Piscina

alterno 1 *izond* korronte elektrikoez mintzatuz, periodikoki noranzkoa aldatzen duena.

Elektroentzefalogramak soinu asko jasotzen ditu: epilepsia dutenengan berezkoak direnak, neuronen aktibitate elektrikoak, eta burmuinetik kanpoko soinu elektrikoakelektrokardiogramak berak, eta korronte **alternoak** edo entxufeak sortzen dituzten soinuak, esaterako. Berria - Gaiak

Edisonek bere aurkariaren argindar sistema hobesten zuen exekuzioetarako, korronte **alternoa** heriotzarekin lotuz gero, etxe erabilerarako arriskutsuegitzat jo eta bere korronte zuzena hobetsi eta orokortuko zelakoan. Harkaitz Cano

Edison korronte zuzenaren defendatzailearen eta George Westinghouse korronte **alternoaren** asmatzailearen artekoa. Harkaitz Cano

Abiadura handiko burdinbideetan korronte **alternoko** 25 kilovolteko tentsioa duten katenarietan ibili ahal izango dira, baita korronte zuzeneko hiru kilovolteko ohiko lineetan ere. Berria - Ekonomia

2 ***korronte alterno*** elektrizitate korronte aldizkatzailea.

Argindarraren bi handikien arteko borroka zegoen honen atzean: Thomas A. Edison korronte zuzenaren defendatzailearen eta George Westinghouse **korronte alternoaren** asmatzailearen artekoa. **Korronte alternoaren** eragin txikitzaile demasak frogatzeko, dozenaka animalia -katuak eta zakurrak bereziki, baina baita elefante bat ere, tartean- elektrokutatu zituen sistema honen bidez. Harkaitz Cano

Abiadura handiko burdinbideetan **korronte alternoko** 25 kilovolteko tentsioa duten katenarietan ibili ahal izango dira, baita korronte zuzeneko hiru kilovolteko ohiko lineetan ere. Berria - Ekonomia

3 ***korronte alternoko motor*** *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Korronte alternoko motorrak korronte alternoaren bidez elikatzen diren motor elektrikoak dira. ETC-entziklopedia

Berak asmatutako **korronte alternoko motorrak**, adibidez, bigarren industria iraultzan murgildu gintuen. ETC-literatura, saiakera

Edonola ere, une hartarako Wall Street barrutian lurrak zenbat balio zuen kontuan hartuta, bestela ere azkar asko eramango zituzketen hara **korronte alternoko motorrak** edo argi-indar hornidura. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

alternoki *adlag* modu alternoan.

Gainera, gauzen baturak berak ere ezingo lioke bere buruari neurririk ezarri, naturak eragozten eta behartzen baitu gorputza hutsuneak eta hutsunea gorputzak mugatzera, horrela **alternoki** orotasuna infinitu bihur dadin; eta euretariko batak bestea mugatuko ez balu, bakarra izaeraz neurrigabea litzateke. Xabier Amuriza

---

altimetria *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi) iz* altitudeak neurtzeko eta irudikatzeko teknika.

Meteosat sateliteak informazio meteorologikoa ematen duen bezala, itsasoari buruzko informazioa ematea da asmoa: gazitasun-maila, tenperatura eta **altimetria**. ETC-prentsa

Informazio hori prozesatuta, Aztik mapak egiten ditu, uraren tenperatura, klorofila kontzentrazioa eta **altimetria** neurtuta. ETC-prentsa

Itsas zabalaren funtzionamendua aztertzen du **altimetria** espaziala izeneko teknikari esker. ETC-prentsa

Kilometroak eta **altimetria** zehaztu behar dira, eta datu guztiak grafiko batera pasatzen dira. ETC-prentsa

Apirilaren 3tik 8ra jokatuko da, eta, mapei, planoei eta **altimetriei** erreparatuta, aurreko urteetakoa baino leunagoa izango da. ETC-prentsa

Azterketa-puntu guztiek, bai planimetrian bai **altimetrian**, plano batean irudikatuta geratu behar dute, eta inguruan aise ezagutzeko moduko puntu finkoak adierazi behar dituzte, edo, bestela, UTM koordenatuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sestra-kurbek eta kotadun puntu **altimetrikoek** doitasunez adierazten dizkigute lurraldearen fisikotasunaren nondik norakoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kotari dagokionez, kota gisa **altimetriak** erabiltzea da ohikoena, itsas mailari erreferentzia eginez. ETC-zientzia, zuzenbidea

1978an Pioneer 12 zundak, Artizarreko lehen **altimetria** eta grabitate mapak egin zituen, 78 eta 63 graduko latitudeen artean. ETC-entziklopedia

---

altimetro *iz* puntu baten altura, erreferentzia puntu batekiko neurtzen duen gailua.

Altimetrora jo nuen berehala: zortzi mila eta laurehun metroan ginen; gailurretik oso hurbil, beraz. Xabier Montoia

Begiratu bat egiten diot **altimetroari**: seiehun eta berrogeita hamar metro. Josu Zabaleta

Zenbateko altuera zure **altimetroan**? Josu Zabaleta

---

altiplano *iz* hedadura handiko goi ordokia.

Altiplanoko deliziak. Aingeru Epaltza

---

altiste *iz* perla.

Eta kontura zaitez horiek (bedeinka bedi haien oroitzapena!) argiro diotenaz: perla Torah-ko testuaren barrua dela, eta alegoriaren kanpoko adierak ez duela deus balio, eta horren kanpoko azalaren barruan gorderiko adiera ezkutua, bere etxe ilun eta altzariz betean **altiste** bat galdu zuenarekin konparatzen dutela. Xabier Kintana

---

altitude *iz* garaiera.

Burua ere galdu egiten da apur bat **altitude** horretan. Unai Elorriaga

Kontua da hegaldia **altitude** handira igo zela, radarrak ekiditeko, eta ondorioz oxigeno-maskara erabili behar zutela. Fernando Morillo

---

alto 1 *interj* geldi!

Karabinero batek gibeletik oihu egin zion: **"Alto** ! Non utzi ditun arroltzeak? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oihu batzuk aditu baitzituen bat-batean: "¡ **Alto** ! ¡ **Alto** ! ¡ **Alto** !". Joan Mari Irigoien

Lau bat edo falta zirenean zaindarien oihuak, **alto** ! **alto** !, eta Lalinek eta Joxanek ziztu bizian furgoiko atzeko ateak itxi eta ihes egin zuten. Paddy Rekalde

Eguerdian, zenbait zalapartari bilduak zeuden saretegia inguratzen ari zirela, eta **alto** adierazteko astirik eman gabe, tiroka egin zitzaion indar publikoari. Koldo Izagirre

"Alto, nor da!". Koldo Izagirre

Dionisosek eskua jaso eta edalontziarekin batera **"alto** !" seinalea egin zuen. Unai Iturriaga

Alto keinuak errepide bazterretik. Harkaitz Cano

'Alto !' egin zidan ustekabean eta ia erori nintzen, bere aurpegi zuria eta bere ile beltz zapal distiratsua ikusi nituenean. Joseba Sarrionandia

2 ***alto eman*** *(orobat **altoa eman**)* gelditzeko esan.

Kilometro gutxira, Tolosatik irten gabe, guardia zibilek **alto eman** eta bertan hil zuten Etxebarrieta. Joseba Zulaika

Benjaminen atera iritsi zenean, han zegoen lerias guardaburua, Xelemiasen seme eta Hananiasen biloba, eta Jeremias profetari **alto eman** eta esan zion: -

Babiloniarrengana igarotzeko asmotan zabiltza zu. Elizen arteko biblia

Aurrera egin zuen bere lagunak, baina jendarmeek, halako batean, **alto eman** zioten ostera, eta, eskuburdinak jarrita, Donapaulera eraman zuten pistolaren mehatxupean preso. Rafa Egiguren

-Mugan harrapatu, eta **"alto" emanez** gero, ba al dakik zer esan behar duan? -galdetu zion behin norbaiti. Rafa Egiguren

Agente batek **altoa eman** dio kamionetari bide erdira aterata. Patxi Iturritegi

Baietz mutu bat egiten dut, abiaduraren handiagatik **emon** ziotela **altoa**. Koldo Izagirre

SSko ofizialek ez zioten **altorik eman**, bazekiten zertara zihoan. Koldo Izagirre

---

altokumulu *iz* maluta edo almendra formako hodeia.

Honela dio han: "Zirrokumulu edo **altokumuluak**, ilaratan antolaturiko hodei-mataza txiki eta biribilduz osatuak". Pello Zabala

---

altruismo *iz* besteen ongia lortzeko joera, are norberaren interesaren gainetik.

Gizon arteko adiskidetasunaren zentzu sakona **altruismoa** duk, hain zuzen ere: ez dugula bestea sakrifikatzerik nahi, ez dugula haren samurtasuna nahi, ez dugula ezertxo ere nahi, hitzik gabeko itun bati eustea besterik. Xabier Olarra

Bestearengandik ezer bilatzen ez duen, ezer espero ez duen **altruismoa**? Xabier Olarra

Horregatik, Savaterrentzat, berdintasunaren aldeko ikuspegi ezkertiar edo aurrerakoian ez dago "inolako **altruismorik**, ongi ulertutako berekoikeria baizik". Iñaki Heras

Benetako norberarekiko maitasuna, ongi ulertutakoa, eta benetako **altruismoa**, hau ere ongi ulertutakoa, ez ote dira ba txanpon beraren bi aldeak? Iñaki Heras

Kontuan izan behar dugu bere buruarekiko maitasun hori **altruismoaren** benetako printzipioa dela Aristotelesentzat. Askoren artean

---

altruista **1** *izond* altruismoz egiten dena.

Hor nonbait edukiko zuten ezkutaturik kontsumitzaile horiek txokolate marka jakin hori erosteko beharra, publizitate alorreko gizaki **altruistei** esker azaleratua: bejondeiela! Iñaki Heras

Keynesek ez zuen kritikatzen marxismoa "gizakiaren joera **altruistak** gizartearen onerako ezarri ahal izateko helburuarengatik". Iñaki Heras

Ez nuen halakorik egin noski, miserablea iruditzen zitzaidalako sari bat -Florak esaten zuen bezala, helburu **"altruista"** baterako izanik ere- diruaren truke aldatzea. Ramon Saizarbitoria

Irabazi nagusia mozkinaren zio egoista herri-zerbitzuaren zio **altruistaren** mende jartzea izan zen. Iñaki Mendiguren

Artista guztiak **altruistak** dira. Ana Urkiza

Heldurik gabeko mundu batean bizi ziren, eta hain bihotz ausart eta **altruista** baineukan, salbatzaile izendatu nuen neure burua. Oskar Arana

Eta euskal literatura arrasatzen duen estiloa ez da horixe besterik: guziz Nietzschez bestekoa: **altruista**, ahultzailea, kristaua, protestantea, sozialista, faltsoa, kobardea. Patziku Perurena

Emakumezkoak: menpekoak, norbaiti dagozkionak, ahulak, tentelak, ikaratiak, subjektiboak, sentiberak, pasiboak, **altruistak**, samurrak, edertasunaren ikurra, sexualki erreprimituak, atseginerako erreprimituak, emakumezkoaren izaera naturak moldatzen du, emakumezkoa gizonezkoaren aliatua da, etxeko lanen eta seme-alaben zaintzaren arduraduna delako. Berria - Euskal Herria

Horrez gain, uste dugu talde ekologisten kritikak kontuan hartu behar direla, erakunde **altruistek** (printzipioz bederen) eginak diren aldetik. Berria - Euskal Herria

Zuk zeuk esana da gutunen batean bitxia dela amodioa: sentimendurik **altruistena** eta eskuzabalena batetik, maitearen alde edozein sakrifizio egiteko gertu paratzen gaituena; bestetik, baina, sentipen berekoi, itsu eta absolutua da maitasuna, bere nahi hori besterik ikusten eta errespetatzen ez duena Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izen gisa)

Begira gizadiaz hain gora kezkatuak ageri diren **altruista** horiei, izatez arrunt gizatarra den kiratsa darie: ez dute inor maite. Patziku Perurena

---

altsasuar *izond/iz* Altsasukoa, Altsasuari dagokiona; Altsasuko biztanlea.

Spam poemak liburuan, batez ere, adierazpena landu nahi izan du idazle **altsasuarrak**: "Poemak sentimenduen gainean eraikiak dauden arren, ezin dugu ahaztu hitzen bidez eraikitzen ditugula". Berria - Kultura

Bittor del Busto euskal preso **altsasuarra** aske aterako da gaur espetxetik, hiru urteko kartzela zigorra osorik beteta. Berria - Euskal Herria

Txuspo Poyo **altsasuarra** da lofteko beteranoa. Harkaitz Cano

Dora Salazar **altsasuarrak** aretoaren beste altuera batean egin du muntaia. Berria - Kultura

Amillano eta Larrion **altsasuarrak** dira eta elkarrekin egin dute aizkora ibilbidea. Iban Zaldua

81 urteko **altsasuar** bat (Nafarroa) urte beteko kartzela zigorra betetzera zigortu zuten atzo, 2004an emakume bati ipurmasailak laztantzeagatik bere nahaiaren kontra. Berria - Euskal Herria

Istripuan bertan bi **altsasuar** hil ziren. Berria - Euskal Herria

Altsasuarrekin Mazkiaran, Retegi, Astiz eta Lagos arituko dira. Berria - Kirola

---

altsaziar ik **alsaziar**.

---

altsi *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* soinekoaren barru aldea.

Besterik ezean, ikasi daigun bada jostorratzagaz, hariagaz eta titareagaz trebe izaten, erropetan **altsirik** dariola euki gura ez badogu. ETC-prentsa

---

altsitu *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) izond* ehunez eta arropez mintzatuz, litsetan desegina.

Handik hari batzuk erdibidean geratu zaizkiola frogatuta (hari **altsituak**, lihazki erakoak), hauek bildu eta amaitu da guztia. ETC-literatura, saiakera

Soinean alkandora arin eta gardena zeraman (gorputz sufritua agerian uzten ziona) eta kopeta erdian, berriz, esparatrapu **altsitu** bat. ETC-prentsa

---

altsuma *iz* kimua, muskila.

Harbeltzak ditu udaberri-zitoak alferrik galtzen, haien **altsumak** lora-zabaldu baino lehen sarritan, eta gaztaroko goiz-ihintz freskotan ohi dira helde kutsakorrak errazen gertatzen. Juan Garzia

Altza, errekondoetan airoso eta lerden altxatzen den zuhaitz beltz hori, txintxilikario ttikiak dindilin dituela, hosto orlegi berdexka finak agudo musker beltzitu egiten zaizkion altza, berrikitzeko beti sapa grinatsua duen altza, izerdi aberatseko **altsumak** dituen altza. Pello Zabala

Horregatik, gune sakratu eta santutegietan **altsumak** zirkuluan landatzen zituzten, gordeune modura, sakratugunetarako. Pello Zabala

Amak esaten zidanan euria hasi orduko dena argiz eta **altsumen** usain berdeaz betetzen zela. Juan Garzia

Sahatsa bezalaxe, xotxak lurrean tinkotu, urmael ingurua nahikoa, **altsuma** berriak bertan agudo sortzeko. Pello Zabala

Gari-**altsuma** esaten zaio garia bakandu ez denean, eta itxiegiaren poderioz, goraka altsumatuta extu hazten denari. Pello Zabala

---

altsumatu, altsuna(tu), altsumatzen da *ad* kimuak erne, kimuak eman.

Gari-altsuma esaten zaio garia bakandu ez denean, eta itxiegiaren poderioz, goraka **altsumatuta** extu hazten denari. Pello Zabala

---

altu 1 *izond* bataz bestekoa baino goragoko garaiera duena. ik **garai**[2].

Eta urtero-urtero, udaberria berriz Ararat mendian iratzartzen denean, artzain **altu** eta bizkorrak, begi beltz eder eta triste eta behatz luze eta mehekoak, Küp aintzirara ailegatzen dira beren txirulekin, loreen, usain azkarraren, koloreen eta lur gorri-beltzaren ondora. Fernando Rey

Iritsi ginenean haren emaztea jaten ematen ari zitzaion aulki **altu** batean eserita zegoen semeari. Joseba Urteaga

-Arraioa, sirena bat! -esan zuen ozenki **altuenak**, eta kopa lorontzi batean hustu ondoren uretara egin zuen salto, arropa eta guzti. Fernando Rey

Handik gutxira, gizon **altu** eta sendo bat sartu zen. Rafa Egiguren

Arraunean hasi, eta, handik pixka batera, ziklopeen uhartean, leizezulo bat ikusi genuen itsasotik gertu; **altua** zen eta goialdean ereinotzez estalia zegoen. Juan Kruz Igerabide

Maila **altuagoko** jendea "urbanizazioetan" bizi da, eta horietako batera goaz gu, La Urbinara. Pako Aristi

Ate aurrean eskailera maila **altu** bat dago, eta handik sartzen da. Josu Zabaleta

Mážsa hasieratik zegoen lanean trenetan, ni bezalaxe; elkarren aurrean geunden, bion artean alanbrehesi **altu** bat zegoen Fernando Rey

Semaforoaren zain, aita ohartu da: ile hori bizia, perlazko belarritakoak eta takoi **altuko** zapatak. Alberto Barandiaren

Beti ibiltzen zen gaizki, tentsioa **altu** zuelako, baina ospitaletik bueltan ondo zegoela esan zuten medikuek bi hilabete lehenago. Xabier Etxabe

Handik denbora batera, ile-hori **altu** batekin ikusi nuen. Joan Mari Irigoien

Burdin barra zabalak zituen leiho **altuetan**, ez batere mehatxuzkoak, hainbat etxetan leihoetan egoten diren burdinak bezain mehatxu gabeak. Matías Múgica

[...] Lisboa hartzen gelditzen baziren baino, bizia hainbeste arriskatu gabe, gainera, harresiak **altuak** baitira eta mairu anitz baitago. Jon Alonso

Ez dute nonbait jakinen brontzezko erraldoi horren izena, baina argi dute "goi mailako" norbait izan zela, longaina eta kapela **altua** direla-eta. Monika Etxebarria

- Nire luzera dauka, apur bat **altuago**. Koldo Izagirre

Monokulo bat zeraman ezkerreko begian, modaz pasatako idun **altua** ("aita-hiltzaile" deitzen zitzaion hura), bernizezko zapatak, eta onddo kapela. Koro Navarro

Haiek olatuen artean geratu ziren, egun hartan ohi baino harroagoak eta **altuagoak** baitziren, eta hantxe zebiltzan, barrez, olatuen kulunkan. Josu Zabaleta

Keinu eta hitz sobera **altuengatik** haserre daudela dirudi, emaztea berandu iritsi baita senarrarekin zeukan hitzordura. Josetxo Azkona

Haizeak eragina ala ez, Torinok **altua** du suizidio-tasa. Anjel Lertxundi

Eta, gizon baten **alturako** jauzi txiki bat eginez, putzu sakon samar bat osatzen zuen hantxe. Joanes Urkixo

Lehortze-sistema tradizionalen aldean metodo hau garesti samarra bada ere, kalitate hobeko produktuak ekoizten ditu: tenperatura **altuegirik** baliatzen ez denez, galera nutrizional eta organoleptikoak dezente urritzen baitira. Edorta Agirre

Uniformearen ordez, brusa soil bat zeraman jantzirik, mujiken gerriko tradizionala, galtza zabalak, eta bota **altuak**, belaunpean estutuak. Karlos Zabala

Aita **altua** zen, beltzarana, begi urdinekoa, "buru-tente" samarra. Joseba Urteaga

Baldintza hauek gero eta maila **altuagoan** betetzen dituenak gaitasunik hoberena dauka Izpiritu Santua hartzeko. Joan Mari Lekuona

Lagun koadrilakoek, Josu R buru zutela, beste aldera jo zuten, Mojen enparantzara; eta handik, ehun harmaila igota, Urbiko auzora, Tabirako auzorik **altuenera**. Pedro Alberdi

Ez al zuen, ba, senartzat hartu, bakar-bakarrik **altua** eta guapoa izateagatik? Jokin Muñoz

Baina lasterka are gehiago galdu nintzen nik sekula ikusi gabeko kaleetan, etxe **altu-altuko** auzoetan, ilargiaren peko isiltasun eta huts erabatekoetan. Fernando Rey

Iluntzera arte ez nuen jakin mutila Évaren senargaia zela, eta haren ama, berriz, maila **altu** samarreko emakumea bera - frantsesez gaizki ahoskatutako hitzak erabiltzen zituen hizketaldien apaingarri -, Lajosen etxeaz arduratzen zela azken urteetan. Ander Irizar

Aitzitik, ohi baino **altuxeagoa** naiz dudan adinerako. Antton Olano

Obispoarengatik galdetu zigun, nolakoa ote zen, **altua**, baxua, potoloa, argala, zenbatsu urte. Inazio Mujika Iraola

Jontxu beti izan zen lider bat gure lagunartean; ugari zituen gainera horretarako bertute eta dohainak: **altua** zen, gehienok baino **altuxeagoa** bai behintzat; ilehoria zen, ez eguzki kolorekoa baina bai beste guztion aldean titulu hori irabaztekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

2 *altu egon*

Eta, jakina, txirristan irrist eginez jaisteko, **altu egon** behar du. Arantxa Iturbe

Txanponen gaur egungo egoeran .192 baliokidetza, gutxi gorabehera, ezkutu bakoitzeko berrogeita hamalau sos-erditan dago; kanbioa berrogeita hamalau sos-erdiren gainetik dagoenean, esango dugu **altu dagoela**, eta gutxiagotan dagoenean, baxu dagoela. Iñaki Iñurrieta

Azkenean, morala behar bezain **altu zegoela** iruditu zitzaionean, bandera gazteei eman eta buruzagi guztiak batzarrera deitu zituen. Joanes Urkixo

Gainera, Villard de Lans herria nahiko **altu dago**, eta horrek beti eragiten die lapurtarrei. Berria - Kirola

Egun ederra zen, eguzkitsua, eta lekuak inoiz baino handiagoa ematen zuen, hazi egin bailitzan: zerua oso **altu zegoen**, eguzkia bera ere bai. Bernardo Atxaga

Leihoa oso **altu dago** eta nik ezin ireki. Pako Aristi

Bi taburete ere erosi ditut eta metroan eraman Brooklyngo etxera: pianoa nahiko **altu dagoenez**, tabureteak oso ongi datoz isats-pianoaren aurrean eseri eta hura mahai gisara erabiltzeko. Harkaitz Cano

Behin, besteen artean, garizuma honetan zera gertatu zen: Frantzisko santua espirituzko kartsutasunez bere gelatik irten eta otoitz egitera zihoan handik gertu, amildegi beldurgarri eta ikaragarriaren gainean oso **altu zegoen** harkaitzeko zulo batean. Askoren artean

3 *altu-estratu*

Altu-estratu gotorrak halaber, hedoien eta euriaren batasunaren aiduru zeuden. Itxaro Borda

Beste batzuetan aire ingurukariak hautsitako exilioko trenen leihoetarik mendekatzen ziren **altu-estratuak** zituen pentsaide. Itxaro Borda

4 *bizikleta altu* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Bizikleta altua edo garaia, izenak dioen bezala, ohi ez bezalako **bizikleta altua** da. Oro har, bizikleta aldatuetatik abiatuta eraikitzen dira, aisialdirako eta erabilera praktikorako oso gutxitan. ETC-entziklopedia

5 *klase altu*

Hileko lehen ostegunetan, **klase altuko** jendea gonbidapen formalik gabe joan zitekeen lagunen etxeetara bisitan. Julen Gabiria

Han mundu guztiak harrapatu zuen, ez klase txiroak bakarrik, baita **klase altuak** eta baita poliziak berak ere. Pako Aristi

"Monovolumen" erraldoietan goaz mendi puntako ermitarik urrunenak bisitatzera, eta neguan **klase altuagokoak** izan nahi luketen Espainia osoko pera, pijo, eskuindar moderno eta ezkertiar aburgesatuekin batera eskiatzera goaz. Pako Aristi

6 *maiztasun altu*

Halako saiakuntzek zera erakutsi dute: leiho obaletik hurbilen dagoen mintz basilarraren aldeak **maiztasun altuei** erantzuten diela, eta urruneneko aldeak, berriz, maiztasun baxuei. Irene Aldasoro

7 ***saxofoi altu*** *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Saxo tenoreak, **saxofoi altuak**, tronpetak, riff sinpleak txertatzen dituzte noizean behin atzealdetik. ETC-literatura, saiakera

Saxofoi altua jotzen du Zabalok. ETC-prentsa

Sei urte daramatza neskez osatutako txarangan **saxofoi altua** jotzen. ETC-prentsa

Fredi Pelaez (hammond organoa), Julen Izarra (saxofoi tenorra), Jose Gallardo (**saxofoi altua**), Mikel Romero (gitarra) eta Juanma Urriza (bateria) musikariek osatzen dute, eta Errabal jazz zigiluan argitaratutako izen bereko lehen diskoa aurkeztu ziguten. ETC-prentsa

Isabel Urrutiaren Oihartzunak **saxofoi alturako** eta akordeoirako idatzitakoa da, eta Maria Jose Doistuaren Aizu konposizioa saxofoi tenor, bibrafono eta pianorako egindakoa. ETC-prentsa

Tipoak erraten zidan: "Begira, kantu honetan **saxofoi altua** joko duzu". ETC-prentsa

Charlie Parker (Kansas City, 1920 -New York, 1955) Bird ezizenez ezaguna zen saxofonista eta konpositore estatubatuarra **saxofoi altu** jotzaile onenetakotzat jotzen da. ETC-prentsa

Hori ikusita, 1961ean, amak plastikozko **saxofoi altu** bat oparitu zion eta, handik gutxira, inguruan bizi zen musikari batek klaseak eman zizkion. ETC-entziklopedia

Musika-tresnen arteko konbinazio bereziak egiten zituen, eta Crestonen Ian horiek dira ezagunenak: Concertinoa marinbarako, sonata **saxofoi alturako** eta pianorako, rapsodia saxofoi eta organorako. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aldiz altuagoa** (3); **altu altu** (3); **altu bat** (25); **altu bat zegoen** (3); **altu bat zen** (4); **altu batean** (4); **altu batekin** (3); **altu baten** (6); **altu eta** (27); **altu hori** (4); **altu samarra** (9); **altu zen** (3); **altua da** (28); **altua dela** (8); **altua du** (4); **altua duen** (4); **altua dute** (3); **altua eman** (4); **altua erakutsi** (7); **altua eta** (26); **altua eta guapoa** (3); **altua izan** (15); **altua izan da** (3); **altua izango** (3); **altua izatea** (4); **altua jo** (3); **altua lortu** (3); **altua zela** (4); **altua zen** (33); **altua zen eta** (5); **altua zena** (3); **altuago bat** (3); **altuago eta** (3); **altuagoa da** (14); **altuagoa dela** (4); **altuagoa dute** (5); **altuagoa eta** (4); **altuagoa izan** (12); **altuagoa izan zen** (3); **altuagoa izango** (5); **altuagoa izango da** (3); **altuagoa zen** (5); **altuagoak ziren** (4); **baino altuago** (10); **baino altuagoa** (30); **baino altuagoa da** (7); **baino altuagoa izan** (5); **baino altuagoak** (9); **bat altuago** (3); **bat altuagoa** (4); **bat altuagoak** (3); **bero espezifiko altua** (3); **bestea baino altuago** (3); **bezain altu** (4); **bezain altua** (8); **espezifiko altua** (3); **eta altua** (7); **eta altuago** (9); **eta altuagoa** (5); **eta altuagoak** (4); **eta oso altua** (3); **gero eta altuago** (6); **gizon altu** (11); **gizon altu bat** (3); **gizon altua** (8); **gizon altua zen** (4); **hain altua** (5); **hartzea altua** (4); **hartzea altua izan** (3); **hori baino altuagoak** (3); **horma altu** (3); **izugarri altua** (4); **kapela altua** (3); **kolesterol altua** (4); **kolesterol maila altua** (3); **kopuru altua** (4); **kopurua oso altua** (4); **leiho altu** (3); **maila altu** (8); **maila altua** (36); **maila altua izan** (3); **maila altua izatea** (3); **maila altuagoa** (6); **maila altuagoa dute** (4); **maila altuagoan** (5); **maila altuagoko** (3); **maila oso altua** (14); **metro altu** (4); **mutil altua** (3); **nahiko altu** (3); **naiz oso altua** (3); **nota altu** (4); **nota altua** (4); **odol presio altua** (3); **oin altu** (7); **oso altu** (11); **oso altua** (59); **oso altua da** (12); **oso altua dela** (4); **oso altua erakutsi** (4); **oso altua eta** (3); **oso altua izan** (7); **oso altua zen** (3); **oso maila altua** (4); **parte hartzea altua** (4); **presio altua** (3); **prezio altua** (4); **puntu altuagoa** (5); **sukar altua** (6); **takoi altu** (3); **tasa altua** (3); **tenperatura altua** (3); **tentsio altua** (4); **tentsioa altua** (3)
>
> **altuak dira** (5); **altuak dituzte** (3); **altuak eta** (18); **altuak ez** (4); **altuari eusteko** (3); **altuegia eman** (4); **altuegia emateagatik** (3); **altuen gainean** (3); **altuena da** (9); **altuena duten** (4); **altuena dutenak** (3); **altuenera iritsi** (5); **altuko eta** (3); **altuko jertse** (3); **altuko oinetakoak** (3); **altuko partida** (3); **altuko zapata** (3); **bota altuak** (8); **diru kopururik altuena** (3); **dorrerik altuenean** (3); **eta takoi altuko** (3); **hematokrito tasa altuegia** (5); **kopuru altuena** (5); **kopururik altuena** (5); **kopururik altuena da** (3); **maila altuak** (8); **maila altuan** (12); **maila altuarekin** (3); **maila altuaren** (3); **maila altuari** (6); **maila altuari eutsi** (4); **maila altuena** (7); **maila altuenera** (3); **maila altuko** (18); **mailarik altuena** (5); **mailarik altuenean** (4); **mailarik altuenera** (4); **mailarik altuenera iritsi** (3); **nota altuak** (5); **oso altuak** (9); **oso altuak dira** (5); **oso altuan** (3); **oso altuko** (4); **oso maila altuan** (4); **pertsona altuak** (3); **prezio altuek** (3); **preziorik altuena** (3); **preziorik altuenean** (3); **puntuaziorik altuena** (4); **punturik altuenera** (4); **suizidio tasarik altuena** (3); **takoi altuak** (3); **takoi altuko** (5); **tasa altuak** (3); **tasa altuegia** (8); **tasa altuegia eman** (4); **tasa altuegia emateagatik** (3); **tasa altuena** (3); **tasarik altuena** (4); **tenperatura altuak** (8); **tenperatura altuetan** (3); **tentsio altuko** (3); **zubirik altuena** (3)

---

altuera *(ETCn **8.937** agerraldi; orobat **altura** **229** agerraldi)* **1** *iz* garaiera.

Neurtzen baldin bada hanka-puntetatik burugaineraino eta neurri hori eramaten bada luzatuta jarritako eskuetara, ikusiko da **altuera** eta zabaleraz berdinak direla, hain zuzen, eskuairarekin egiten diren karratuak bezala. Santiago Iruretagoiena

Altuera eta pisua: 1,93 metro eta 75 kilo. Sonia Gonzalez

Neurtu zuen, bada, hiria makilaz, eta bi mila kilometrotik gora zen; luzera, zabalera eta **altuera** berdinak ziren. Elizen arteko biblia

Helduek badugu Gorputzaren Masa Indizea deritzon neurria, pisua eta **altuera** erabili behar dira kalkulatzeko. Berria - Harian

Bi metroko luzera, metro bateko zabalera eta metro erdiko **altuera** duen hilobian lurperatu genuen, ikurrinarekin eta esmeralda eskukada batekin. Joseba Sarrionandia

Objektu baten **altuera** neurtzeko tresna egokia da tangentea. Jon Muñoz

Hori lortzeko obraren elementuak egokitu behar dira elkarrekin, **altuera** zabalerarekin, eta zabalera luzerarekin, eta azken finean elementu guztiak jarri behar dira bakoitza bere proportzioaren arabera. Santiago Iruretagoiena

Lasterka zihoanan eta pozik, besterik gabe, bere **altuera** bitan baden gari sail hartan barna. Harkaitz Cano

1961ean, Ebro ibaiak Zaragoza parean, uholdean, ia 7 metro igo zuen uraren **altuera**. Pello Zabala

-Zutabeak 52 metro inguruko **altuera** du, eta William Railton-en diseinuaren arabera eraiki zuten. Ramon Saizarbitoria

Neurri aipagarrikoa da, 253 metroko luzeera eta 28 metroko zabalera baitauka eta bere gillatik puntu gorenera 50 metroko **altuera** baitu. Berria - Mundua

2 (deklinabide atzizkiekin)

Iparraldean Ate Beltzetik eta Cirith Ungolen barrena haize zorrotz eta izoztua zebilen lurraren **altueran** xuxurlaka. Agustin Otsoa

1.350 metroko **altueran** dago, eta horrek motorrei %20 eta 25 bitarteko indarra kentzen die. Berria - Kirola

39.000 oinetako **altueran** gaude, baina norbaitek aireportuko lurrean esandako hura datorkit gogora: hau adiskidantza eder baten hasiera izan liteke! Pako Aristi

Kontuan izan beza 950eko **altueran** haize txarrak jotzen duela! Koldo Biguri

Gastu handia eta teknika eta lan handiak beharko zituen setiatzeko makina bat eraiki zuen, 125 oin **altuerakoa** eta 60 oin zabalerakoa. Santiago Iruretagoiena

Gogoan dut haren aire hauskorra, oso garaiak diren zenbait pertsonengan ohi denez, alegia **altuerak** eragiten dien bertigoak konkorrarazi balitu bezala. Juan Garzia

Zenbateko **altuera** zure altimetroan? Josu Zabaleta

Sistiloan, **altuera** bederatzi eta erdi zatitan banatu behar da, eta horietako baten lodiera eman kolomaren diametroari. Santiago Iruretagoiena

Borreroak, ofizioak emandako trebetasunez, eskatu zituen jakin nahi zituen datuak -28 urteko zorigaiztoko neska haren pisu eta **altuera**, esaterako-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kokotsetik sudurraren oineraino, aurpegiaren **altueraren** hiruren bat neurtzen du; sudurraren oinetik bekainetaraino, beste heren bat; eta bekainetatik ile-sustraietaraino kopetak ere beste heren bat neurtzen du. Santiago Iruretagoiena

Tenplu areostiloetan, diametroari **altueraren** zortzirena emanez egin behar dira kolomak. Santiago Iruretagoiena

Bere **altuerakoa** da kasik, ile bilduak belarrien handia erakusten du, gingilaren gorria perlatxo beltzek. Koldo Izagirre

Etxe greziarrek ez daukate atriorik (VI, 7), Erroman insulae handiak edo **altuerako** blokeak eraikitzen dira. Santiago Iruretagoiena

Hormaren goiko aldean erretako adreiluarekin ilara bat egin behar da teilatuaren azpian, gutxi gorabehera oin eta erdiko **altuerakoa**. Santiago Iruretagoiena

Herrixka, errekaren gaineko tontortxo batean, metro erdiko **altuerako** harresi batez inguratuta zegoen. Joanes Urkixo

Harrizko hormak, irtengune eta arrakaladurarik gabeak, hogeita hamar oineko **altuera** zuen, gainaldean kanporanzko hegal batek koroaturik. Agustin Otsoa

Koka dezagun eguzkia 10 graduko **altueran** 1628an, Vich herrialdean, inoiz ez bezalako harrijasa, 34 zentimetroko **altueran** dena zuri utzi zuela; harri batzuk bi librakoak bota omen zituen. Pello Zabala

Aurreneko aldian denak gelditzen dira harrituta zaldiaren **altuerarekin**. Bernardo Atxaga

Ionosfera atmosferaren hirugarren geruza da, eta Lurretik 50 kilometrora hasi eta 500 kilometroko **altueraraino** iristen da. Berria - Gaiak

Zortzi metroko **altueratik** erori zen lantegi bateko sabaia garbitzen ari zela eta larri eraman zuten Santiagoko erietxera. Berria - Ekonomia

Asteburu horretan bertan istripu larria izan zuen anaiak, Pirinioetan: hogeita bost metroko **altueratik** amildu zen. Iban Zaldua

Leku horietan, aurrena lubetak egin behar dira, zabaleraz eta **altueraz** ahal denik eta handienak, gero harresien zimenduak ondo sartu lubetaren hondoan, eta gero, harresiak zabal eraiki, lurraren bultzadari erraz eusteko bezain zabal. Santiago Iruretagoiena

Altueraz ere, arrabete kentzen zigun, inoiz harrapatuko ez genion aldea. Aingeru Epaltza

Bada Antartidan 3.000 metroko izotz jelatuko **altuera** duen eremurik. Pello Zabala

Orduko zortziehun kilometroko lastertasunean eta minutuko hiru mila ehun eta hogeita hamar biratan, **altuera** galtzen ari naiz. Josu Zabaleta

Denboraren, espazioaren, **altueraren**, dimentsioaren zein kokapenaren desagerpena izango da. Berria - Kultura

3 (izenondoekin)

Harrizko pilare, adreilu errezko horma eta harlangaitzezko mehelinen laguntzarekin **altuera** handiak altxa daitezke. Santiago Iruretagoiena

Zeren, Jainkoak daki zer misterioz, burezurra handitu egiten da **altuera** handitan, eta lur mailan, behean, normala den kasko batek, tornuak bezalaxe estutzen dizkizu hezurrak hamar mila metrora zaudenean. Josu Zabaleta

Herri handi eta jendetsua zen, Anak erraldoiaren ondorengoak bezain **altuera** handikoa. Elizen arteko biblia

Iseka egiten zioten haren **altuera** txikiari, eta haren barreari, igeltxo batenaren pareko, behin baino gehiagotan Asanblea osoa barrez lehertzen jarri baitzuen. Monika Etxebarria

Erne zen hazia eta mahatsondo mardul egin, **altuera** txikikoa izan arren. Elizen arteko biblia

Ondoren, Harry joan zen; buruz aurrera astiro sartu eta lurrezko maldan behera irristatu zen, **altuera** gutxiko tunel baten hondoraino. Iñaki Mendiguren

Altuera apalean joango naiz Arraserantz. Josu Zabaleta

Dar-dar egiten sentitu zuen, eta utzi egin zuen; erratza airean geratu zen zintzilika, inork eutsi gabe, justu Harry gainera igotzeko **altuera** egokian. Iñaki Mendiguren

Horiek ez dute besteak bezain ondorio larririk, ez baitute **altuera** esanguratsu batetik salto egiten. Berria - Euskal Herria

Eraikuntzaren luze-zabala izugarria bada ere (10.000 metro koadro ditu erabilgarri), lau bat pisuko **altuera** doiak liburu erraldoi etzan baten itxura ematen dio. Anjel Lertxundi

Kanadarrek globo bat erabiliko dute ontzia **altuera** jakin batera eramateko. Berria - Gaiak

Hobeki borrokatzen dela mairuaren aurka gure aurrean eta gure **altuera** berean dauzkagularik ezen ez mairua hor goian daudelarik, harrikadaka eta grabitatearen abantaila profitatuz, eta gu hemen behean, harrien eta grabitatearen ondorioak pairatzen. Jon Alonso

4 (hitz elkartuetan)

-Mendi- **altuera** 1.140 metrokoan: urteko 600 litro prezipitazio. Pello Zabala

Faltan botatzen dut **altuera** jauzia, baina gaur egun ez dut konpetitzen. Marta Mendiak Espainiako **altuera** -jauziko txapelketan nagusitu zenean. Berria - Kirola

Aurpegia, kokotsetik hasi eta kopetaren goiko alderaino, ilearen sustraiak jaiotzen diren punturaino, gorputz-**altuera** guztiaren hamarretik bat izaten da. Santiago Iruretagoiena

Halaber du belarriak behar baino sentikortasun handiagoa soinuaren **altuera** -aldaketekiko. Irene Aldasoro

Altuera gaitzak edo bronkitis batek jota. Berria - Ekonomia

5 ***altuera-jauzi*** *(orobat **altura jauzi**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **altuera(-)jauzi** agertzen da)* gorako jauzia.

Atenasera joateko larri ibiliko den bestea Eunice Barber, **altuera jauzian** Munduko txapelduna izango da. Berria - Kirola

Espainiako **altuera-jauziko** txapelketan. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

altuera du (8); **altuera duen** (4); **altuera duten** (3); **altuera egokian** (4); **altuera emango** (4); **altuera ere** (3); **altuera eta** (22); **altuera eta pisua** (5); **altuera handiagoa** (5); **altuera handiko** (8); **altuera handikoa** (3); **altuera handitan** (4); **altuera hartu** (7); **altuera hori** (6); **altuera horretan** (5); **altuera izango** (10); **altuera izango du** (3); **altuera izango dute** (4); **altuera jakin** (3); **altuera jauzia** (5); **altuera jauziko** (4); **altuera modulu** (3); **altuera modulu batekoa** (3); **altuera zuen** (7); **altuerak ez** (3); **altueran dago** (5); **altueran eta** (4); **altueran haize** (4); **altueran haize txarrak** (4); **altueraren seiren** (3); **altueraren zazpiren** (4); **altueraren zazpiren bat** (3); **altueratik erori** (7); **altueratik erori zen** (6); **bateko altuera** (3); **baten altuera** (5); **bere altuera** (5); **bere altueraren** (3); **bitarteko altuera** (6); **bost metroko altueratik** (5); **da altuera** (10); **du altuera** (3); **du altueran** (6); **duen altueraren** (4); **dute altueran** (4); **erdiko altuera** (6); **eta altuera** (20); **eta altuera handiko** (3); **eta altueran** (5); **eta altueraz** (4); **eta erdiko altuera** (5); **horren altuera** (3); **inguruko altuera** (5); **izango du altueran** (3); **izango dute altueran** (3); **kapitelaren altuera** (8); **kolomen altuera** (3); **mendi altuera** (3); **metro inguruko altuera** (4); **metroko altuera** (22); **metroko altuera du** (4); **metroko altuera eta** (4); **metroko altuerako** (5); **metroko altueran** (16); **metroko altueran dago** (5); **metroko altuerara** (5); **metroko altuerara** (5); **metroko altueratik** (11); **metroko altueratik erori** (5); **oineko altuera** (4); **zentimetroko altuera** (6)

---

altura *(garaiera edo goratasuna adierazteko, Euskaltzaindiaren Hiztegian **altuera** agertzen da)* *iz* itsas zabala; itsas zabaleko arrantza. ik **altuera**.

Herrian **alturako** lonja berria egiteko premia zalantzan inor gutxik jartzen bazuen ere, herritar askok ez zuten begiko izan aukeratutako kokapena. Berria - Euskal Herria

Portu honetako **alturako** armadore ia guztiak dabiltza horrelakoetan. Berria - Ekonomia

Legatz kumeen arrantza «eutsi ezinezko tentazioa» dela ohartarazi du Ondarroako **Alturako** Ekoizleen Erakundeak (OPPAO). Berria - Ekonomia

2 ***alturako arrantza***

Espainiako Gobernuak Gipuzkoan duen ordezkaritzak atzo jakinarazi zuenez, diruaren truke, behatzaileak tratu berezia ematen zien **alturako arrantzan** lan egiten duten zortzi ontzi jabeei. Berria - Euskal Herria

3 ***alturako ontzi***

Are gehiago, Belaustegik jakinarazi du Ondarroako **alturako ontzi** "asko eta asko" arrain kumeen negozioan dabiltzala. Berria - Ekonomia

Alturako ontzia omen da eta urrun zebilen arrantzan. Berria - Ekonomia

---

alturatxo *iz adkor* altura txikia.

Bera kale mailan, eta emaztea bebarruko **alturatxoan** jarria. Jokin Muñoz

---

altutxo *(orobat **altxutxu**) izond adkor* altu samar.

Eguzkia **altutxo** zegoen oraindik, jai eguna amaitutzat emateko. Josu Zabaleta

Airearen hezetasun erlatiboa kontuan hartuaz gero, Donostiakoa aukeran **altutxoa** dela esan beharko: % 79 baita. Pello Zabala

Eguerdi inguruko **altutxuenak** kontuan hartuz gero, honako batez besteko hauek aterako ditugu gure lau hiriburuetan: 12.9 gradurekin irabazten du Bilbok. Pello Zabala

Horretarako egiten zituzten muino **altutxuen** eta herriko egokienean. Pello Zabala

---

altutxu ik **altutxo**.

---

altxa ik **altxatu**.

---

altxabide *iz* altxatzeko bidea.

Begira, ume hau israeldar batzuentzat erorbide eta besteentzat **altxabide** izateko ezarria dago; eztabaida sortuko duen seinalea izango da. Elizen arteko biblia

altxaera *iz* altura.

Azpisail hauek ditu: *ichonographia, ortographia* eta *scaenographia*, hau da, traza, **altxaera** eta perspektiba (hiruko azpizatiketa hori, esan behar da, gaitzetsi egin zuela Albertik, ukatu egiten baitu scaenographia baliabide arkitektoniko hutsen artean sartu behar denik, askoz ere kutsu piktorikoagoa duenez izaeraz). Santiago Iruretagoiena

---

altxaferu ik **altxafuego**.

---

altxaferugile ik **altxafuegogile**.

---

altxafuego *(orobat **altxaferu** g.er.)* **1** *iz* etxafuegoa, suziria.

Altxafuego gorria atera zen orduan gorantz. Koldo Biguri

Doi-doi hasia zen horretan, noiz eta txistu bat entzun eta, hiri aldetik, **altxafuego** berde bat atera baitzen gorantz. Koldo Biguri

Doi-doi hasia zen horretan, noiz eta txistu bat entzun eta, hiri aldetik, **altxafuego** berde bat atera baitzen gorantz. Koldo Biguri

Eta **altxafuego** berdea eta gero **altxafuego** gorria errepide probintzialaren kontrako aldetik ikusten badira, kanaleko egurrezko zubia izango da lehertuko dena. Koldo Biguri

Berehalaxe aterako zen bigarren **altxafuegoa**, gorria, lehena egiaztatzeko. Koldo Biguri

Euskarri horietako batekin Pirlo zelairatzen badu, ordea, **altxafuego** kaxa bat pitz dezake, Italiaren jokoa norabide guztietara zabalduz. Berria - Kirola

2 irud/hed

Txikia eta oso azkarra, Rigako **altxaferua** esaten diote. Berria - Kirola

---

altxafuegogile *(corpusean **altxaferugile** soilik) iz* altxafuegoak egiten dituen pertsona.

Penie Babaxkila eta Salduzelaiko pailazoak eta Oilobusti eta txitoak, eta Tripota eta Espantuaire **altxaferugile** mukitzuak, Kalakari eta Kalapita barrendariak Jose Angel Irigaray

---

altxagabeko *izlag* oreaz mintzatuz, altxatu ez dena.

Israeldarrek artean legamiz **altxagabeko** orea hartu eta, estalkietan bildurik, bizkarrean eraman zuten. Jose Antonio Mujika

Israeldarrek artean legamiz **altxagabeko** orea hartu eta, estalkietan bildurik, bizkarrean eraman zuten. Jose Antonio Mujika

Egiptotik bota zituztenez gero, ez zuten biderakoak prestatzeko betarik izan; beraz, Egiptotik atera zuten **altxagabeko** orez legamigabeko opilak egin zituzten. Elizen arteko biblia

---

altxagailu **1** *iz* zerbait altxatzeko gailua.

Altzairu eta porlanezko zatiak altxatu edota erretiratzeko metala mozteko gailuak eta **altxagailu** hidraulikoak baliatu zituzten, baita hondakinetan zuloak egiteko pikatxoiak ere. Berria - Mundua

Ezerezari begira geratu zen, estu eta larri pentsatuz premiazkoa zela **altxagailu** elektrikoren bat asmatzea, janaria zuzenean plateretik ahora eramateko, eskuak batere erabili gabe. Anton Garikano

Pariseko kafe gehienetan izaten diren upel-**altxagailuetatik** hartu zuen ideia. Jon Muñoz

Eta oraino soinu-**altxagailua** beharrien tutagarri zen eta horri kasu handia egin behar da, jendea solasean artzeko, beharriak ez zauritzeko, buru muineraino ekartzen baitu. Herria

2 irud/hed

Altxagailu miragarriak ukan nituen Beloketik lehen paketa, eta beste batzuk handik eta hemendik. Marzel Etxehandi

---

altxagarri **1** *izond* altxa daitekeena.

Hain zabala eta sakona zen lubakia, non ezin baitzen zeharkatu zubi **altxagarri** baten laguntza gabe. Jon Muñoz

Zubi **altxagarria** eraitsi, eta, Hassan igaro orduko, berriz altxatu zuten. Jon Muñoz

2 *iz* legamia, orantza.

Dussel garagardo **altxagarrizko** tabletak jaten harrapatu dugu, eta guri ez zigun ezer ematen. Josu Zabaleta

3 ***bihotz-altxagarri*** *(orobat **bihotzaltxagarri** g.er.) izond/iz* bihotza altxatzen duena.

Hitz **bihotz-altxagarri** haiekin, Afifi anderea doi bat masailgorritu zen makillaje gorriztaren azpian. Patxi Zubizarreta

Bertsu **bihotz-altxagarriak**, Alkhat, Laka eta Mihura-ren ahotik! Herria

Saioa G.-ren erantzun **bihotz-altxagarria**. Iñaki Segurola

Gero besarkatu egin ninduen, esanez bezala, edatekoari falta zaion aparra neronek emango diat estutu **bihotz altxagarri** honekin. Harkaitz Cano

Gero, izango da denbora maisuen lanen artean [...] melodia **bihotz-altxagarriak** bilatzeko, beharbada -nork daki?- baita ideia gogo-altxagarriak ere. Oskar Arana

Kapera betea, kantuak eder, **bihotz-altxagarri**. Herria

Erresumako gaineratiko eskualdeetako berriak ez ziren **bihotz altxagarriak**, baina, zaharrenek filosofo aire batekin zioten bezala, ekaitza jin bezala joaten zen, eta hau ere pasatuko zen. Elena Touyarou

Ardoa edari pizgarria duk, eta **bihotz-altxagarria**, gero. Patxi Zubizarreta

Baso bat ardo piastra erdian **bihotz-altxagarria** duk ni bezalako langabe batentzat. Patxi Zubizarreta

Hori zela-ta, **bihotz-altxagarri** gerta zitezkeen kantuak ugaldu ziren gure artean. Txillardegi

Hori dena, egin duen aro ederrarekin batera, **bihotz altxagarria** gertatu zait. Patxi Zubizarreta

Zinezkoa izan zela algara, ez presondegira datorren bisitariari zor zaion **bihotz-altxagarri** halamoduzkoa. Koldo Izagirre

4 ***zubi altxagarri***

Azken lubakiaren barru-barruan, **zubi altxagarriaren** zimenduei erreparatu zien Ruche jaunak. Jon Muñoz

Eta **zubi altxagarria** jasota, zangaren gainetiko pasabide bihurtzen zenean, Loiolara abiatzen ginen, eta Astigarragara, eta Igeldora. Txillardegi

Atzo, hoteletik irten, eta hirigunera heltzen hasiak ginela, itsasontziak igarotzeko **zubi altxagarri** bat goratzen ikusi ahal izan genuen. Patxi Zubizarreta

Nik, ordea, lepoa betiko burutik eta beste zerbait ikusi uste nuen: alegia, Dabid eta biok elkartzen gintuen zubia, **zubi altxagarri** batekin konpara daitekeela, eta oraingoz bi besoak ezin bereiziago daudela. Patxi Zubizarreta

Zubi altxagarrien ordez, lur mordoak daude, erretena behar den mailaraino betetzen dutela. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
altxagarri bat (3); **altxagarri eta** (5); **bihotz altxagarri** (30); **bihotz altxagarria** (11); **bihotz altxagarriak** (7); **bihotzen altxagarri** (5); **denentzat bihotz altxagarri** (3); **gogo bihotzen altxagarri** (5); **hitz bihotz altxagarri** (3); **zubi altxagarri** (6); **zubi altxagarria** (5)

---

altxagarridun *izlag* altxagarria duena.

Etzanda zegoen Ruche jauna ez zeruduna ez zubi **altxagarridun** lubaki batez inguratua zen ohe batean; aitzitik, itsasontzi itxura zuen oheak; haren branka tente eta fina leihorantz nabigatzen ari zela zirudien, eta handik ikusi zuen Ruche jaunak joniar itsasoaren zerrenda urdina. Jon Muñoz

---

altxagune *iz* altxatzeko gunea.

Idulkiei egin behar zaien **altxagunea**, plinto singularrak jarriz egingo da, bakoitiak, hirugarren liburuan esan den bezala. Santiago Iruretagoiena

---

altxaketa *iz* altxatzea.

Ontzi barruan egiten dituzten mugimenduetara moldatzen da pisuen **altxaketa**. Berria - Kirola

Proben artean harri jasotzea, gizon proba, lokotx biltzea, lasto fardel botatzea, trontza eta ingude **altxaketa** egongo dira. Berria - Kirola

Ingude-**altxaketan** ere oinarrizko moldaketa bat izango du, beheko oina aurrean kokatuko da, eta goiko xafla bere horretan mantenduko da altuera egokituz. Berria - Kirola

---

altxakor *izond* altxatzeko joera duena.

Kabroi bat haiz, ez heurez (hik ez duk deus egin, gizajo horrek, bazekiat), baina bai berez: sexu gogor, gogorkor eta **altxakorraren** ordezkaria haiz betiere giza-eme baten aurrean; sexu menderatzaile edo, agian hobeki, eredu-jartzailearen ale bat haiz erremedio gabe, eta badakik, berez, "gizon guztiak berdinak direla" haien iritzian eta begietan (berdinak ala bat eta bera?). Iñaki Segurola

---

altxaldi *iz* zerbait altxatzen den aldia.

Beste **altxaldi** batek ez die susmorik pizten, antza. Arantxa Iturbe

125 kiloko zilindro-kopa, 112,5eko kuboa eta 100 kiloko bola altxa behar izan zituzten bi minutuko txanda banatan, eta hurrenez hurren 22, 16 eta 17 **altxaldi** eman eta orotara 6.250 kilo altxata. Berria - Kirola

Zestoarrak 21 aldiz altxa zuen 125 kilokoa, halere lana pilatu zitzaion eta benetako harri-jasotze ikuskizuna emanez azken 50 segundoetan 9 **altxaldi** atera zizkion. Berria - Kirola

Denok gara halere ezjakinak, eskolan ikasten ez diren gaietan batik bat, eta apurka ikasi ditugu geroztik agirretarren eroriko mingarriak eta **altxaldi** irrigarriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehen ere aritu ziren, eta 21na **altxaldi** lortu zituen bakoitzak. Berria - Mundua

---

altxamen *iz* altxatzea.

Eliza barneko ezkerraldean dira Paxkal D'Elizaberry-ren brontzezko obrak; grabitateari uko egiten diote elizkizun ontziek **altxamena** adierazteko, goratzen da ere bildutasunean haren andredena Maria Apal garbia. Herria

---

altxamendu *(orobat **altxamentu** g.er.) iz* matxinada, jazarraldia.

Dariok, zazpi urteko **altxamendua** (K.a. Iñaki Mendiguren

Papisten lehenbiziko **altxamenduan**, Domingo ere preso egin zuten, Garrüze errenditu ondoan. Aingeru Epaltza

1568ko udazkenean, Nafarroa Behereko papisten bigarren **altxamenduan**, fedekideek beren burua defendatzeko lanik ere ez zuten hartu. Aingeru Epaltza

Baina **altxamendua**, edo inbasioa, hobeki esanda, ez dute enperadorearen kontra egiten, Errusiaren kontra baizik. Karlos Zabala

Beste guztiek pentsatu zuten Chavezen kolpeak huts egin zuela, baina Chavezek ez, Chavezek bazekien ez zuela huts egin, ez baitzen kolpe bat, **altxamentu** militarra baizik. Pako Aristi

Inperio ekumenikoak estatu borrokalariak ordeztu ondoren, bortizkerialdiak ez dira erabat bertan behera geratzen, baizik eta forma berrietan agertzen dira, gerra zibil edo gizarte-**altxamenduen** forman. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
altxamendu bat (7); **altxamendu faxista** (3); **altxamendu faxistaren** (3)
altxamendua gertatu (3); **altxamendua izan zen** (3); **militarren altxamendua** (3)

---

altxamentu ik **altxamendu**.

---

altxapean *adlag* ezkutuan.

Neronek daukat, bada, den-dena **altxapean**. Hasier Etxeberria

---

altxapeka *adlag* ezkutuka.

Harri Arokoa izanik, hizkuntza honek ez zuen tokirik XXø mendeko hezkuntzan, isilpeka eta **altxapeka** ez bazen, ez zuen tokirik Punta Galeako golfean edo medikuen kontsultazioetan, ez zuen tokirik silizioaren gizartean. Pello Salaburu

Idazle onak ditugu gure artean, luma arin erabiltzen dutenak, esan nahi duten hori esan nahi duten moduan eta unean eragozpenik gabe adierazteko gai direnak, aldamenean beti hiztegira **altxapeka** begira egon gabe. Pello Salaburu

Gui Xien izeneko mediku batek aztertu zuen **altxapeka** probintzia bateko baserritar batzuek saldutako odola, 155 erakusgarri denetara, eta haien artean HIESaz infektaturik zegoen % 62. Pello Salaburu

altxaprima *iz* puntu batean bermatzen eta horren inguruan biratzen den burdin barra, gauza pisuak jasotzeko edo higitzeko erabiltzen dena. ik **palanka**, **burdinaga**.

Brikolaje zale horietako bat bestela, molde guztietako tresneriak liluratuko duena: soldagailuak, azkoinak, iltzeak eta iltze-ateratzekoak, zizelak, pintzak, kurrikak, artaziak eta **altxaprimak**. Joxan Elosegi

---

altxarazi, altxaraz(i), altxarazten da/du *ad* altxatzera behartu.

Don Justinianoren nahigabea handia izan zen, antza, Perminen eskulturaren inguruan metro erdiko harresi zirkular bat **altxarazi** baitzuen. Joan Mari Irigoien

Hala bada, mirabeak erosi nituen, eta lur ederrak, eta orduantxe **altxarazi** nuen etxe hau. Patxi Zubizarreta

Aitak jauregiaren kantoi batean **altxarazi** zuen kapera, san Inazioren izenpean. Joan Mari Irigoien

Une hartan, Poseidonek uhin ikaragarri bat **altxarazi** zuen, eta almadiako egurrak erabat sakabanaturik utzi zituen, haizeak lastoa alde guztietara sakabanatzen duenean bezala. Juan Kruz Igerabide

Kaioen zaratak burua **altxarazi** zion. Ramon Saizarbitoria

Handik puska batera, burua gorantz **altxarazi**, eta begiratu bat egin dut. Mirentxu Larrañaga

Luzatu zuen Moisesek makila Egiptoren gainean, eta Jaunak haizea **altxarazi** zuen ekialdetik, egun osoan eta gau osoan jo zuena. Jose Antonio Mujika

Lehenengoak lehoia zirudien, baina arranoaren hegalak zituen; hari begira nengoela, kendu egin zizkioten hegoak eta, lurretik **altxaraziz**, bi hanken gainean jarrarazi zuten, gizakia bezala, eta giza adimena eman zioten. Elizen arteko biblia

Eskuineko eskutik harturik, **altxarazi** egin zuen. Elizen arteko biblia

Herriak **altxarazten** ditu, eta gero hondatu; nazioak hedarazi, eta gero desegin. Elizen arteko biblia

Emaztearen doinuan bazen zer bitxi bat, begiak plateretik **altxarazi** zizkiona. Elena Touyarou

Nik **altxaraziko** dut herri bat zure aurka, eta honek zapalduko zaitu, hasi goiko Hamat ertzetik eta beheko Araba errekaraino. Elizen arteko biblia

Apalari burua **altxarazten** dio jakinduriak eta handikien artean eserarazten. Elizen arteko biblia

Duar erdirainoko beren bide laburrean, hauts galanta kamioiek **altxarazitakoa**. Xabier Montoia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

altxarazi egin (7); **altxarazi egin zuen** (4); **altxarazi eta** (5); **altxarazi ninduen** (3); **altxarazi zion** (3); **altxarazi zuen** (11); **aurka altxarazi** (3); **bat altxarazi** (4); **bat altxaraziko** (3); **burua altxarazi** (3); **burua altxarazten** (3); **eta altxarazi egin** (4)

---

altxari *iz* altxatzailea, jasotzailea.

Egia esan, itxi nion bidea, baina hark ez zidan gizona izan beharrean adibidez **altxari** bat izan banintz baino gehiagoko kasurik egin. Matías Múgica

Bestako sarituen artean herritarrei lehen ohorea: Jean Zugarramurdi adintsua eta Jauregi 21 urteko orga **altxaria**. Herria

---

altxata ik **altxatu**.

---

altxati ik **altxatu**.

---

altxatoki *iz* ezkutalekua.

Harakinen karrikan, gizon bat ito beharrean ari ziren soldaduak, lepoa uhalez inguratu eta tiraka, bere diruen **altxatokia** erran ziezaien. Aingeru Epaltza

Medikuntza naturistaz arnegatu ondoxetik, haren zakua botika mordoskaren **altxatokia** zen, buruko minak eta txaketenak estakuru. Aingeru Epaltza

Luze gabe, gatibu eta desarmaturik egonen da Udalaren **altxatokian**. Aingeru Epaltza

---

altxatu, altxa(tu), altxatzen *(orobat **altzatu** g.er. eta **altzau** g.er.)* **1** da/du *ad* etzanda edo eserita dagoena zutitu; jaso, goratu, eraiki; agintea duenari uko egin, eraso; haren kontra borrokatzeko prestatu; gorde, ezkutatu.

"Y también mucho culpable, patrón", esan zuen Efrainek, osabari **altxatzen** lagunduz. Bernardo Atxaga

Orduan zutik ipini zen eta, plazatxoaren erdian bizpahiru salto txiki egin ondoren, bat-batean eskuineko hanka luzatuta **altxatu** eta eskuin eskuko atzamarrez ukitu zuen oin punta, malgutasun harrigarria erakutsiz bere adineko pertsona batentzat. Jon Arretxe

Anaia nagusi Felixek eta arreba Ernestinak apenas **altxatu** duten burua erantzuterakoan. Itziar Otegi

Nini **altxatu** zen, eta bere taldearen kanta zaharrari ekin zion: Josu Zabaleta

Altxatu da, kanpadendaren sarreraraino egin du eta itzuli da, zerbaitez ahantzia iduri. Aingeru Epaltza

Orduan hanka bat **altxatu** eta, leiho-hegian jartzea lortu zuenean, harekin berriz indar egin, eta gelan burua aurretik sartzea erdietsi zuen. Aitor Arana

Rut isilka joan, estalkia **altxatu** eta haren oinetan etzan zen. Jose Antonio Mujika

Eguzkitako betaurrekoak kopetara **altxatu** eta inguru guztia eskuaretu zuen begiradaz. Harkaitz Cano

Burua erdiko tartetik libratu, beste aldera pasa eta zangoa **altxatzen** hasi denean jaka trabatu zaio. Pello Lizarralde

Azkenik, betazal urdinxkak **altxatu** egin ziren. Lopez de Arana

Sekulako lanbro-mintz zabalak **altxatzen** hasi ziren, trumilka eta parrastan, itsasgainetik zerurantz, eta euri-adar sarriak zetozen zerutik itsasora. Anjel Lertxundi

Haizeak orro ikaragarriak ateratzen zituen, zazpi mila deabruk hartutako piztia bailitzan, eta ontziaren gainetik **altxatzen** ziren ur palastadak erauzten zizkion itsasoari, astindu basatiak emanez giza eskuek josi zuten ontzi kroskoaren egurrari. Pako Aristi

Pixetan berotutako arrautzak jaten zituen amonak egunero; haatik, egun batean, arropa garbitzen ari zela, ziplo erori zen, eta ez zen gehiago **altxatu**. Juan Kruz Igerabide

Orduan, leunki ukitzen zuen Verner, eta hark, begiak **altxatu** gabe, ahopeka erantzuten zion: Jose Morales

Bigarren liburuan hiria nola sortu eta garatzen den azaltzen du Sokratesek: gauza gutxi hastapenean, eta hastapenetik beharko dira haxean ezarri, egiari loturik, moralari segituz eta, beraz, gazteria zuzentasunean **altxatuz**, adin horretan baitira plegu on edo txarrak hartzen. Askoren artean

Oihuka **altxatu** zen; orduan, mutikoa ikusi eta, zelan jakin barik, segituan konturatu zen Peter Pan zela. Julen Gabiria

Euria atertu duenean, Gorria bere aulkitik jaiki, lastairan etzan eta animalia nekatuaren moduan loak hartu duela iruditu zaidanean, **altxatu** eta leiho zabalerantz nator. Joseba Sarrionandia

Guztiek ere zutik jarri behar dute eskuak luze, alkandora **altxatzen** zaie atzetik, eta zigortu egiten dituzte". Joxerra Garzia

Kontakizun horiek, izan ere, ez ziren konbentzionalak; Joyceren narrazio laburrak Irlandan garai hartan zegoen mugimendu literarioaren kontra **altxatzen** ziren. Irene Aldasoro

Aitak kentzeko erregutu zidan, oso tonu serioan baina ahotsa batere **altxatu** gabe. Anjel Lertxundi

Josebaren jaikitze prozesura itzuliz, gazteari, **altxatzen** hastean, gela osoa zurrunbilo bihurtu zitzaion. Fernando Morillo

Niri, jangelako beste muturretik, iruditu zitzaidan ahotsa zertxobait gehiago **altxatzen** zutela gizonezkoak eta eseririk jarraitzen zuen neskato hark. Joxemari Iturralde

Jarraian, lekutik **altxatu** eta barnera egin zuen atso andaluzak. Joan Mari Irigoien

Burua **altxatu**, zeregina bertan behera utzi, eta aztoratuta begiratu zion. Migel Angel Mintegi

Eskuak lehortzeko erabili duzun papera botatzeko, oinaz sakatzen duzu ontziaren estalkia **altxatzen** duen pedala. Lourdes Oñederra

Gazteak begiak **altxatu** zituen mahaitik, eta burua atzeratu, galderazko keinu bat eginez. Elena Touyarou

Edorta Jimenez: Telletxea Idigorasen La otra cara de la Invencible liburua hartu eta harrituta gelditu nintzen irakurri nuenean zelan orduan Probintzia zen Gipuzkoan, ezin zen inor soldadu indarrez **altxatu**; armadan parte hartzekotan, borondatez egingo zuten. Markos Zapiain

Kafearen tenorean, **altxatu** eta hitzalditxoa egin nuen: haur zena mutiko bihurtu izana ospatzen ari ginela esan nuen, ez dut gogoan formulazio zehatza. Joxerra Garzia

Katxoren eskua mateletara **altxatu** zen mekanikoki eta odola bazeriola konturatu zenean, izuaren izuaz, abantzu trenputxartu zen. Itxaro Borda

Emakumea, taula gainera makurtuta, zer mugitu pentsatzen ari dela ematen du Gizona, aulkitik **altxatuta**, argazki makinaren atzean dago, bisoretik begira. Imanol Zurutuza

Armada handia zekarren berekin, Biarnoko beren estatuetan eta Gaskoniako beren bizkonderrietan **altxatua** eta mertzenarioz eta alde guztietako nafarrez gizendua. Aingeru Epaltza

Sasoi hartan bizikletaz ibiltzeko moda zegoen, eta ni bizikletaren pedalei eragiten oso bizkorra nintzen, bai eskurik gabe eta baita oin bat **altxatuta** jendeari agur egiten niola ere. Pello Lizarralde

Zerurantz **altxatu** nituen orduan neure begiak. Txillardegi

Altxatu egin nintzen, joateko asmotan. Xabier Mendiguren Elizegi

Txirri bat egin, patxaran botila atera eta ordutan egon zitekeen burua **altxatu** gabe, ni telebistari begira egoten nintzen bitartean. Xabier Montoia

Lankideak ohi baino ozenkiago mintzo ziren, eta ohi baino gehiagotan **altxatzen** ziren aulkietatik. Pedro Alberdi

Harryk ohe ondoko mahaitxoan zegoen lanpara hartu zuen, esku batean tinko heldu hari eta gora **altxatu** zuen, erasotzeko prest. Iñaki Mendiguren

Norbera hustea ere bada hustea: estalkia **altxatzea**, nork bere burua abandonuan uztea, maskara kentzea. Joxan Elosegi

Boluetarantz jaisten, Santutxuk are erraldoiago dirudi, Artagan muinoaren tontorrean **altxatutako** kalexka eta etxe itzelen artean. Urtzi Urrutikoeetxea

Kointzidentziak ez zuela gauza onik adierazten iruditu zitzaion, eta eguzkiaren argira **altxatu** zuen burua, pentsamendu ilunak aldendu nahian. Ramon Saizarbitoria

Umeak, libre duen eskua zerurantz **altxatu**, eta atzamarra luze, inoiz erabili gabeko hitza marruskatu du ezpain artean: Iñigo Aranbarri

Gizonak uko egin zion, ordea; eta andre laborariak ia **altxatu** egin zuen bere beso indartsuez eta azenario eta arbien artera bota, garrasi egiten ziola, sumindurik: Karlos Zabala

Gure ahalmen osoarekin **altxatzen** gara eta burua tente daukagu nazioen aurrean. Ramon Etxezarreta

Banaka batzuk eguneroko joan etorrietatik gora **altxatzen** diren asmakizunak dituzu. Gotzon Garate

Inguratzen duten etxe altuetarik batzuk arkupe erraldoietan daude **altxatuak**. Koldo Izagirre

Biharamunean, irakurle frustratuaren sentimendua piztu zuen liburu sakratua **altxatu** zenuen. Ramuntxo Etxeberri

Astiro **altxatu** zen Matias jesarlekutik. Unai Elorriaga

Ipurdia **altxatu** eta zerbaitetan hasi beharra neukan. Oskar Arana

Gure familian, lehenengo aurpegi loguratsuak bururdietatik **altxatzen** hasten dira. Josu Zabaleta

Alegia, gaztea aise **altxatzen** dela bihotza astintzen duten gertaera malerusetatik, baina zaharrak peril handia bizi duela antzeko enbaten aurrean. Pako Aristi

Rosa, apur bat ikaratuta, lotsati **altxatu** zen eta lotsati egin zuen armairurantz, eskuak altzoan oraindik. Unai Elorriaga

Atzetik hasi zitzaion neskari, baina hark, buelta eman, eta, eskua **altxatuz**, ez jarraitzeko adierazi zion. Fernando Morillo

Sodoma, Gomorra eta ibarreko lautada aldera begiratu zuen eta kea ikusi zuen denean, labe batetik bezala lurretik **altxatzen**. Jose Antonio Mujika

Truxa irakasleak burua **altxatu** zuen. Anton Garikano

Gero, beti garagardoa lagun, Euskal Herriaz eta Irlandaz kontu kontari aritu ziren, harik eta neskak alde egin behar zuela esan eta mahaitik **altxatu** zen arte. Martin Anso

Neska fotokopia bat egiteko asmotan **altxatu** da. Patxi Zubizarreta

Hitzaldiaren erdi-parera-edo, agure bat aulkitik **altxatu** da, nahikoa zalaparta eginez. Karlos Linazasoro

Berarekin batera esertzea izango zen normalena, baina ez zuen begirada **altxatu**, eta ni mahai batzuk haruntzago eseri nintzen. Xabier Olarra

2 (era burutua izenondo gisa)

Benettonek mutur **altxatua** modan jarri zuen arte, talde guztiek kopiatu zuten Neweyren ideia. Berria - Kirola

Pariseko Barbes-Rochechounaten jaitsi nintzen, metroaren eta trenaren geltoki **altxatuan**. Bernardo Atxaga

Argazki bat egiterakoan ondasun preziatuenekin behar zuen izan, denda, bizikleta, gero lau zaldikoa etorriko zen, esku bat autoaren sabai gainean jarrita, eta horren eraginez jaka gehiegi **altxatua**. Joseba Urteaga

Ogareff koronelak muga zeharkatzea lortu omen zuela mozorro jantzita, eta berandu gabe elkartuko omen zela tatariarren buruarekin herrialde **altxatuaren** erdi-erdian. Karlos Zabala

Belartxo beltzezko zipriztina ikusten utzi zidan beso **altxatuak**, eta haren distirak irmoago egin zituen bular begitanduaren harroa eta gila-hezurrak bitan zatitzen zuen bizkarra. Koldo Izagirre

Okerrena da hauek ez gaituztela sekula bakerako eta elkar lanerako bidera bultzatuko, obeditu beharreko legeak ezartzen ez baditugu -elkarbizitzarako arauak-, zigorrik nahi izan ezik (ezpata **altxatuaren** pean, dio literalki Hobbesek). Esteban Antxustegi

3 (izen gisa)

Erran behar dugu soldado horiek Aljeriako gerlaren denboran berriz **altxatuetarik** zirela. Herria

Lisboa aurrean, Armadako ontzi bateko ofizialek ez zuten **altxatuen** kontra tiro egiteko agindua bete Berria - Mundua

Baina kasu honetan, bertze aunitzetan bezalaxe, alferrik saiatuko dira **altxatua** zuzentzen: ederki jakin izan baitu Filipek egoerari atxikitzen. Filipe Bidart

Altxatuek Etxeberri eta bere familia preso hartuak zituzten noski eta Lüküzeko gaztelura eraman. Aingeru Epaltza

Ez ahaztu zeure arerioen eupadak, zure kontra **altxatuen** gero eta iskanbila handiagoak. Elizen arteko biblia

4 *aingura altxatu*

Eta Deskribatzen hasita -D-raino iritsiak baikara dagoeneko- zera aipatu behar lehenik, XIX. mendean aurrera -makinak iritsi arte- gizonezkoek lanean erabiltzen zituzten kanta haietako bat dela; taldekoa alegia, meatzariek harria pikatzerakoan, edo basamutilek enbor bat zerratzean, edo marinelek **aingura altxatzerakoan**, oihu batean kantatzen zutena. Bernardo Atxaga

Beste enbarkazio batean **aingura altxatzen** ari ziren, itsas belarrak eta lapak nabaritzen ziren kate handian itsatsirik, eta urpeko beste animalia txiki batzuk beren burua airean sentitzean jauzten ziren uretara. Joseba Sarrionandia

5 *aingurak altxatu* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Aita itsas arkitektoa zen, eta, ni jaio berritan, **aingurak altxatu** eta munduari bira emateari ekin genion 15 urtez. ETC-prentsa

Biharamunean **aingurak altxatu** eta borrokarako formazioan jarri ziren etsaiek euren kontra itsaso zabalera irten nahi bazuten ere, eta, hori gertatu ezean, eurek haiei barruan erasotzeko asmoz. ETC-literatura, saiakera

6 *bihotza altxatu*

Bihotza altxatzen didazu hitz horiekin, poz handia ematen didazu. Jose Morales

Hango giro adiskidetsuak **bihotza altxatuko** dizu. Gotzon Garate

Zerbait ekarri dizut **bihotza altxatzeko**. Matías Múgica

Horrek bereziki losintxatu zuen gure Andreas, **bihotza altxatu** ere bai, eta lehengo juzgua konfirmarazi, baizik eta egun hura benetan bere jaioteguna zela. Matías Mujika

Jendeak norbere graziari barre egiten diola entzuteak **bihotza altxatzen** du, eta gerora drogaren antzekoa da: zenbat eta barre gehiago egin jendeak, orduan eta gogo handiagoa du norberak barre eragitekoa. Jesus Mari Mendizabal

7 *bizkarra altxatu*

Min zorrotza sentitu nuen eta lehertu egin nintzen ia, koltxoian gora irristatu nahi izan nuen, baina hura nire barrenean sartu zen azkeneraino, besterik ez, eta hala egon zen geldirik, nire gorputzari tinko eutsiz, musua bukatu zuen arte, eta orduan **bizkarra altxatu** eta larrua jotzen hasi zen, aurpegira begiratzen zidala. Karlos Zabala

Ustekabeak eraginda **bizkarra altxatu** du eta arantzak bizkarra ziztatu dio. Pello Lizarralde

8 *hipoteka altxatu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ondorioz, Ameztoiaren gain zen **hipoteka altxatua** izan zen. ETC-literatura, saiakera

Zorrak kitatu eta **hipoteka altxatu** omen zituen baina Iru?errira bizitzera joan ziren, Burlatara, herriko sakristaua eta gorri nabarmen bat nekez bizi zitezkeen etxe berean. ETC-literatura, saiakera

9 *mahaia altxatu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Malen **mahaia altxatzen** hasi zen eta Margarita ere jaiki egin zen hari lagundu nahian. ETC-literatura, saiakera

10 *oihala altxatu*

Nahi gabe atera zaiela diote antolatzaileek, baina bihar **oihala altxatuko** duen Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia Shakespeare Jaialdia izango da ia. Berria - Kultura

Antzezlea beldur izaten da **oihala altxatu** baino lehenagoko isiltasunaren aurrean. Ana Urkiza

Osaba Natàn eta izeba Allegra etorri ziren, palko batera; **oihala altxatu**, eta izebak bere semea goitik beheraino armaturik ikusi zuenean, filisteo baten gisa, ahotsaren betean egin zuen oihu: Juan Garzia

Eta horrela, iskanbila hura bukatu eta hamabost egunera, ilunabar batean norbaitek buruan zaku bat ipini, hesi baten atzera arrastaka eraman, "antzokiko" **oihala altxatu** eta gorriz margotu zizkion atzealdeak. Koldo Biguri

11 *pisuak altxatu*

Gehienak bederatzi urterekin hasi ziren **pisuak altxatzen**, eta normal-normal joan dira hazten. Berria - Kirola

Pisuak altxatzen ditut, eta korrika eta bizikletarekin ere aritzen naiz. Berria - Kirola

Lehendabiziko hilabete horietan, arraunlariak korrika, **pisuak altxatzen** edota ergometroan aritzen dira. Berria - Kirola

12 *preso altxatu*

Gordeka ibilia, Saddam Hussein azkenean **preso altxatua** izan zen.. Herria

Alemanek **preso altxatu** zuten egun hartan berean, mendekioz dudarik gabe, Vansteenberghe Baionako apezpikuaren prediku bat ez baitzuten batere preziatu... Herria

Lotsatuta ibili zen aldi batez, etxetik irten gabe, eta gero **preso altxatu** zuten. Javi Cillero

Isildu behar ukan zuen, hura ere **preso altxatuko** zutela mehatxatu baitzuten. Elena Touyarou

Eta horra non, 1811ko egun batez, Reille jeneral frantsesak eta Mendiry, frantses poliziaren buruzagiak, erabakitzen duten behar direla baliatu Aguirre, Pellou eta Iriso-z, bai eta Lizarra edo Estella-ko Navarro diputatuaz, Mina zepo batetara biltzeko Leoz herrian eta han **preso altxatzeko**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

13 *sorbaldak altxatu*

Sorbaldak altxatu ditut. Xabier Mendiguren Elizegi

Maimie aho zabalik zegoen, beste makinatxo bat zuhaitz luze gauza bera egiten ari zirela ikustean, eta, isil-isilka, Umeen Pasealekurantz joan zen, eta adi makurtu zen Menorcako gorosti baten azpian, baina gorostiak **sorbaldak altxatu** zituen eta ez zirudien asko arduratu zenik Maimierekin. Julen Gabiria

Gizon zaharrak **sorbaldak altxatu** zituen. Elena Touyarou

Sudurra zimur, begiak handi eta bekainak gora, **sorbaldak altxatuko** nituzke. Iñigo Aranbarri

Alexek **sorbaldak altxatu** zituen. Fernando Morillo

Sorbaldak altxatu eta erantzuten dio: Jesus Mari Mendizabal

Ibiltzeari utzi gabe, **sorbaldak altxatuz** adierazi zion Goizederrek nahi zuena egiteko, ez zitzaiola axola. Juan Luis Zabala

14 *ukabila altxatu*

Gero baso aldera itzuli eta, **ukabila altxatuz**, oihu egin zuen. Joanes Urkixo

-Kristoren jipoia hartuko duzu, entzun? -oihu egin zion osaba Vernonek, **ukabila altxatu** eta Harryrengana oldartuz. Iñaki Mendiguren

'Biba komunismoa! ' oihu egin zuen miliziano batek **ukabila altxatuz** kuartelaren balkoian. Joseba Sarrionandia

Eta, ene hitzak aditu bezain fite, erresortak bulkaturik bezala, **ukabila altxatu** zidan, ez ordea Italiako hartan bezala goian geldi uzteko, baina muturreko baten emaiteko, muturreko beldurgarria... Joan Mari Irigoien

"Uztak jendea bakean!", egin nion oihu, **ukabila altxatuz**. Bernardo Atxaga

Otegik **ukabila altxatuz** eta irribarre eginaz erantzun zien. Berria - Euskal Herria

Gogoratzen zen Otsabideko komisariatik ateratzean, telebista kamera anitzen aurrean, Bozek **ukabila altxatuz** "Gora Euskadi Askatuta" nola deiadar egin zuen. Itxaro Borda

Zorra Kitok **ukabila altxatu** zuen sekula jo ez zuen atea jotzeko -aurreko guztietan beti eduki zuen zabalik-, baina ezin zuen. Anton Garikano

Pepponek begietara begiratu zion On Camillori, jaka berriz erantzi, makina aurrean jarri eta **ukabila altxatu** zuen. Koldo Biguri

Eta agurtu egin dut ezkerreko **ukabila altxatuz**. Txillardegi

-Haren alde agertuko al zara, txerrenkumea? -orro egin zuen, **ukabila altxatzearekin** batera. Patxi Zubizarreta

Ukabila altxatu du keinu iraultzaile bat eginik, begizuloen hondotik azken txantxa izpiak erreskatatzeko ahalegina eginez. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

altxa burua (6); **altxa da** (5); **altxa egin** (31); **altxa egin da** (6); **altxa egin zen** (16); **altxa egiten** (5); **altxa eta** (84); **altxa ez** (5); **altxa ezazu** (6); **altxa gabe** (11); **altxa hadi** (6); **altxa mutillak** (10); **altxa naiz** (6); **altxa zaitez** (16); **altxa zango** (8); **altxa zen** (10); **altxa ziren** (8); **altxa zituen** (12); **altxa zuen** (15); **altxa zuten** (5); **aulkitik altxa** (5); **begiak altxa** (5); **besoak altxa** (8); **burua altxa** (18); **bururik altxa** (6); **ere altxa** (5); **eskua altxa** (8); **eta altxa** (10); **lurretik altxa** (6); **mahaitik altxa** (11); **mahaitik altxa eta** (8); **xango altxa** (6); **xango altxa zango** (6)

ahotsa altxatu (10); **airean altxatu** (14); **alde altxatu** (5); **aldiz altxatu** (5); **altxatu ahal** (12); **altxatu ahal izateko** (5); **altxatu baino** (5); **altxatu baitzen** (6); **altxatu behar** (47); **altxatu behar izan** (13); **altxatu beharko** (9); **altxatu berri** (5); **altxatu bezain** (6); **altxatu bezain laster** (6); **altxatu da** (51); **altxatu den** (8); **altxatu dira** (24); **altxatu ditu** (19); **altxatu dituzte** (23); **altxatu du** (52); **altxatu dute** (42); **altxatu dute eta** (5); **altxatu egin** (183); **altxatu egin behar** (5); **altxatu egin da** (9); **altxatu egin nintzen** (13); **altxatu egin zen** (107); **altxatu egin ziren** (16); **altxatu egin zuen** (10); **altxatu egingo** (7); **altxatu egiten** (30); **altxatu egiten da** (11); **altxatu egiten zen** (6); **altxatu ere** (16); **altxatu ere egin** (11); **altxatu eta** (547); **altxatu eta alde** (9); **altxatu eta bere** (8); **altxatu eta esan** (6); **altxatu eta ez** (7); **altxatu eta irribarre** (7); **altxatu eta joan** (5); **altxatu ezinik** (12); **altxatu gabe** (69); **altxatu izan** (5); **altxatu nahi** (29); **altxatu nahi du** (6); **altxatu nahi izan** (6); **altxatu naiz** (11); **altxatu nintzen** (14); **altxatu nintzenean** (5); **altxatu nituen** (7); **altxatu nuen** (22); **altxatu nuen eta** (5); **altxatu ondoren** (11); **altxatu orduko** (8); **altxatu zela** (8); **altxatu zen** (247); **altxatu zen eta** (21); **altxatu zenean** (20); **altxatu zidan** (5); **altxatu zion** (5); **altxatu ziren** (69); **altxatu ziren eta** (7); **altxatu zituen** (76); **altxatu zituen begiak** (5); **altxatu zituen eta** (6); **altxatu zituzten** (35); **altxatu zuela** (5); **altxatu zuelarik** (5); **altxatu zuen** (270); **altxatu zuen bere** (5); **altxatu zuen burua** (5); **altxatu zuen eskua** (5); **altxatu zuen eta** (12); **altxatu zuenean** (17); **altxatu zuten** (36)

apur bat altxatu (7); **artean altxatu** (7); **astiro altxatu** (7); **aulkitik altxatu** (40); **aulkitik altxatu eta** (14); **aulkitik altxatu gabe** (7); **aulkitik altxatu zen** (5); **aurka altxatu** (29); **aurka altxatu zen** (7); **aurrean altxatu** (5); **barrikadak altxatu** (5); **bat altxatu** (72); **bat altxatu dute** (5); **bat altxatu eta** (10); **bat altxatu zen** (14); **bat altxatu zuen** (15); **bat batean altxatu** (14); **batean altxatu** (25); **batean altxatu zen** (5); **batera altxatu** (7); **batez altxatu** (11); **batez altxatu zen** (6); **batzu altxatu** (6); **begiak altxatu** (33); **begiak altxatu eta** (13); **begiak altxatu zituen** (9); **begirada altxatu** (16); **begirik altxatu** (5); **berak altxatu** (6); **berea altxatu** (5); **berehala altxatu** (22); **berehala altxatu zen** (8); **berriro altxatu** (20); **berriz altxatu** (11); **besaburuak altxatu** (12); **besaburuak altxatu zituen** (6); **besaulkitik altxatu** (6); **besoa altxatu** (29); **besoa altxatu eta** (7); **besoa altxatu zuen** (10); **besoak altxatu** (14); **besoak altxatu zituen** (6); **bezala altxatu** (12); **buru gainetik altxatu** (6); **burua altxatu** (191); **burua altxatu du** (11); **burua altxatu eta** (50); **burua altxatu ezinik** (7); **burua altxatu gabe** (13); **burua altxatu zuen** (47); **burua altxatu zuenean** (6); **bururik altxatu** (12); **edo altxatu** (7); **ere altxatu** (27); **ere altxatu egin** (5); **eserlekutik altxatu** (9); **esku bat altxatu** (5); **eskua altxatu** (45); **eskua altxatu du** (6); **eskua altxatu eta** (9); **eskua altxatu zuen** (22); **eskuak altxatu** (10); **eskuak altxatu zituen** (5); **estalkia altxatu** (10); **eta altxatu** (62); **eta altxatu egin** (25); **eta altxatu eta** (6); **eta altxatu zen** (7); **eta burua altxatu** (16); **eta ohorezki altxatu** (6); **ezpata altxatu** (8); **gabe altxatu** (15); **gainean altxatu** (9); **gainetik altxatu** (14); **gizona altxatu** (6); **goiz altxatu** (6); **gona altxatu** (7); **gonak altxatu** (5); **gora altxatu** (29); **gora altxatu eta** (11); **gora altxatu zuen** (5); **haizea altxatu** (7); **haizea altxatu zen** (5); **hanka altxatu** (8); **harryk burua altxatu** (11); **haur**

altxatu (9); hazi eta altxatu (7); hura altxatu (5); jauzi batez altxatu (7); joateko altxatu (9); kokotsa altxatu (6); komunera joateko altxatu (5); kontra altxatu (41); kontra altxatu eta (5); kontra altxatu ziren (5); kopa altxatu (10); lekutik altxatu (9); liburutik altxatu (5); lurretik altxatu (34); lurretik altxatu eta (10); magikoa altxatu (9); magikoa altxatu zuen (7); mahaitik altxatu (41); mahaitik altxatu eta (19); mahaitik altxatu zen (9); makila altxatu (5); makila magikoa altxatu (9); nekez altxatu (8); nola altxatu (10); ohetik altxatu (45); ohetik altxatu eta (12); ohorezki altxatu (11); oihala altxatu (6); oina altxatu (5); orduan altxatu (7); pixka bat altxatu (7); poliki altxatu (6); preso altxatu (31); preso altxatu dute (9); sofatik altxatu (13); sofatik altxatu eta (9); sorbaldak altxatu (6); tapa altxatu (7); ukabila altxatu (8); zen altxatu (6); zerurantz altxatu (6)

airean altxatuz (5); altxatua eta (8); altxatua eta (8); altxatua izan (40); altxatua izan (40); altxatua izan da (22); altxatua izan da (22); altxatua izan zen (8); altxatua izan zen (8); altxatua izanen (11); altxatua izanen (11); altxatua izanen dela (9); altxatua izanen dela (9); altxatua zen (8); altxatua zen (8); altxatua zuen (5); altxatua zuen (5); altxatuko da (8); altxatuko dira (14); altxatuko ditu (5); altxatuko du (11); altxatuko dute (9); altxatuko ez (6); altxatuko naiz (6); altxatuko zen (6); altxatuta eta (6); altxatuta zegoen (5); altxatuz eta (17); altxatuz gero (5); apur bat altxatuz (7); aurka altxatuko (6); bat altxatuko (6); bat altxaturik (7); bat altxatuta (6); bat altxatuz (13); berriro altxatuko (6); besoa altxatuta (9); besoak altxatuz (5); burua altxatuko (6); burua altxatuta (8); burua altxatuz (8); ere altxatuko (5); eritegirat altxatua (7); eritegirat altxatua (7); eskua altxatuta (5); eskua altxatuz (15); eskuak altxatuta (5); gainean altxatua (5); gora altxatuz (8); kontra altxatuko (9); kontra altxatuko dira (5); lurretik altxatuta (5); noiz altxatuko (6); ongi altxatua (7); ongi altxatua (7); ongi altxatua izanen (6); ongi altxatua izanen (6); preso altxatua (32); preso altxatua (32); preso altxatua izan (22); preso altxatua izan (22); ukabila altxatuz (8)

altxatzea erabaki (7); altxatzea lortu (7); altxatzearekin batera (5); altxatzeko agindu (8); altxatzeko agindua (7); altxatzeko agindua eman (5); altxatzeko eta (12); altxatzeko gai (5); altxatzeko keinua (9); altxatzeko keinua egin (7); altxatzen ari (38); altxatzen ari ziren (10); altxatzen da (42); altxatzen da eta (8); altxatzen den (16); altxatzen dira (20); altxatzen diren (7); altxatzen direnean (6); altxatzen ditu (17); altxatzen dituzte (6); altxatzen du (27); altxatzen duela (5); altxatzen duen (7); altxatzen dute (7); altxatzen eta (32); altxatzen ez (7); altxatzen hasi (17); altxatzen ikusi (5); altxatzen lagundu (12); altxatzen lagundu zion (5); altxatzen saiatu (6); altxatzen zela (6); altxatzen zen (59); altxatzen zen eta (5); altxatzen zenean (6); altxatzen ziren (30); altxatzen zituen (15); altxatzen zituzten (9); altxatzen zuela (15); altxatzen zuen (21); altxatzen zuten (9); aulkitik altxatzen (12); aurka altxatzen (14); bat altxatzea (5); bat altxatzeko (11); bat altxatzen (23); bat altxatzen zen (5); batean altxatzen (7); begiak altxatzen (10); berriz altxatzeko (6); berriz altxatzen (8); besoak altxatzen (6); bezala altxatzen (6); burua altxatzeko (8); burua altxatzen (31); burua altxatzen du (5); bururik altxatzen (5); eskua altxatzen (10); eta altxatzeko (10); eta altxatzen (10); ez altxatzeko (5); gainetik altxatzen (12); garaikurra altxatzeko (6); gora altxatzen (22); gorpua altxatzeko (7); harro altxatzen (6); haurren altxatzeko (6); ingude altxatzea (9); ingude altxatzen (9); kontra altxatzen (13); lasto altxatzea (12); lasto altxatzen (10); lurretik altxatzeko (6); lurretik altxatzen (14); nola altxatzen (9); ohetik altxatzen (7); pisuak altxatzen (9); soinburuak altxatzen (5); soinburuak altxatzen ditu (5); zen altxatzen (6)

---

altxatzaile *(orobat **altxatzale** eta **altxazale**)* **1** *iz* adieraztzen dena altxatzen duen pertsona. ik **altxari**; **jasotzaile**.

Apostoluaren beraren hitzak erabiliz, Jainkoaren beraren lankide bezala eta haren Gorputz misteriozkoaren atal erorkorren **altxatzaile** bezala kontsideratzen zaitut. Askoren artean

Besteak beste barne Jose Vicondoa aizkolaria, Baiona, Zuraide eta Arrangoitzeko soka-tirari, lasto **altxatzaile** eta gaineratikoak. Herria

Horregatik, abiadura probetako kirolariek, pisu **altxatzaileek** eta eskubaloi eta futbol jokalariek erabiltzen dute batez ere. Berria - Kirola

Aimar Irigoien errezildar gaztea harri **altxatzaile** hoberenen erronkan sartu da. Herria

Igande aratsaldean, ahate jokoa; ondotik aizkolari, orga-joko eta harri **altxatzaile**. Herria

Soka tira, lasto altxatzea, desafioa 4 aizkolarirekin, orga joko, harri **altxatzaile** famatua Iñaki Perurena bere semearekin. Herria

11.30etan herri kirolak: harri **altxatzaileak** (Iñaki eta Iñaxio Perurena, Haimar Hirigoyen), sokatiralariak (neskak mutikoen kontra). Herria

Joko horien artetik ikusiko dira Agite aizkolaria zurrun baten gainean ari dena eta Iñaki Perurena munduko harri **altxazale** hoberena izan dena. Herria

Bote multxo bat ere lagun (9 bazituen 22 tan Ibarrolak eta 12 orotara) 22-14 ziren irabazleak Ibarrola irriskatu batekin eta zer pilota **altxatzalea**; alta gibeletik Dermitek ere bere aspaldiko partida hoberena zuen eta arras plaza gizona gainerat. Herria

Herri jokülariak: Lucien BETBEDER lasto **altxazale** txapeldüna eta haren üngürüan herri kirolen erakustaldia (orga joküa...), Jose VICONDOA (aizkolari xutik-Xiberoa), Andde ARBENOITZ (Lasto **altxazale**-Lapurdi), Jean Claude APESSETCHE (ingude joküa, Baxe Nafarroa). Herria

2 *harri-altxatzaile* harri-jasotzailea.

Ikusgarriaren bururatzeko Iñaki Perurenak **harri** altxatzale famatuenetarik bat, 100 eta 220 kilo arteko harriak bere semearekin batean altxatuko ditu. Herria

Saralegi **harri** altxatzale gaitza ere hor izanen da. Herria

Aratsaldean 3ak eta erditan Indar Jokoak **Harri** altxatzailea barne. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **harri altxatzaile** (6)

---

altxatzale ik **altxatzaile**.

---

altxatze **1** *iz* etzanda edo eserita dagoena zutitzea; jasotzea, goratzea, eraikitzea.

Altxatze hauen goi-indarrez, aztarna ziurrez baieztatua dagoen bezala, jainko-jakinduriaren misterio ezkutuak ematen zitzaizkion aditzera. Askoren artean

Gorputzaren dirdira eta **altxatze** harrigarri hura bere barne-argitasunaren eta espiritu-altxatzearen adierazgarri balira bezala. Askoren artean

Errezelaren **altxatze** gorrotagarriarekin. Koro Navarro

Behakoaren **altxatze**-jaiste hotz bat izan zen haren errepuesta. Joan Mari Irigoien

Halako buru **altxatze** batean, begiak betaurrekoen gainetik zabalduz, esan zuen: [...]. Joseba Sarrionandia

Haien gainean, ezinezkoa zela ondo zekien arren -distantzia ez baitzen txikia-, olatuen **altxatze** eta kiribiltzea sumatzen zuela iruditu zitzaion, itsasoan igoz eta murgilduz. Fernando Morillo

Geroago, denbora igaro ahala, gizon aingerutar hau Jainkoaren graziak gero eta aurrerago eraman zuen bertutez bertute, zeruko dohainetan, jainkozko goi **altxatze** eta estasi-aldietan. Askoren artean

Gurdi **altxatze** txapelketa azkenean partaideak biltzen badira, txinga txapelketa, ingude **altxatze** txapelketa eta kadete mailako arpana txapelketa ere jokatuko dira. Berria - Kirola

Zalantzak sortzen dituen gorpu **altxatze** akta bat dago. Berria - Harian

2 *goi altxatze*

Jainkozko **goi**-altxatze eta estasi-aldietan. Askoren artean

3 *ingude altxatze* ingudea altxatzean datzan euskal kirola.

Lokotx-biltzea, **ingude**-altxatzea eta lasto-altxatzea izango dira txapelketako lehen hiru kirolak. Berria - Kirola

Txinga txapelketa, **ingude** altxatze txapelketa eta kadete mailako arpana txapelketa ere jokatuko dira. Berria - Kirola

Ingude-altxatzea izan zen hirugarren proba. Bizkaitarrak bi kiroletan gailendu ziren: sokatiran eta lokotx-biltzen; **ingude**-altxatzen eta lasto-altxatzen bigarren sailkatu ziren.

Ingude-altxatzen, lau kirolari ariko dira lehian 18 kiloko ingudearekin. Berria - Kirola

Ingude-altxatzen, berriz, Alain Bidart Gabadikoak 83 jasoaldi egin zituen. Berria - Kirola

Atzo izan zen **ingude**-altxatzean Nafarroako txapelketa. Berria - Kirola

· Izanen diren jokoak: harri altxatzea, **ingudea**, lasto altxatzea, dantza, toka, xiba, zerra, soka tira, jende zama, arto biltzea, esne untziak, zaku eremaitea. Herria

4 *lasto altxatze*

Lokotx-biltzea, ingude-altxatzea eta **lasto-altxatzea** izango dira txapelketako lehen hiru kirolak, eta tartekatu egingo dituzte. Berria - Kirola

Azken aurreko jardunaldia jokatuko dute lehian ari diren 26 kirolariek, eta bost kiroletan jardungo dute: ingude-altxatzea, lokotx-biltzea, txinga eroatea, harri-jasotzea eta **lasto-altxatzea**. Berria - Kirola

Gisa berean, nolako arrakasta ez dute ba gure indar-jokoek! Soka-tira, **lasto altxatze**, bidun karreatze eta gaineratikoek! Sail hortan badira lehiaketa batzu guziz famatuak! Denetako aipagarriena, aspaldikoena ere naski, Donapaleunegiten den hori. Herria

5 ***ukabila altxatze***

-Haren alde agertuko al zara, txerrenkumea? -orro egin zuen, **ukabila altxatzearekin** batera. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **altxatze bat** (3); **altxatze eta** (6); **buru altxatze** (3); **lasto altxatze** (10); **preso altxatze** (3)

---

altxatzeke *adlag* altxatu gabe.

Eta hari esaten dio, ahapeka ia, ahotsa **altxatzeke**, bakean uzteko bere usoei edo igarriko diola bestela. Felipe Juaristi

-Ez dago besterik, mutil -erantzun zuen Tomeo Xaharrak, begiak edalontzitik **altxatzeke** -. Felipe Juaristi

Karobian txigortu zuten, bada, kaltziotik banandu zedin, zeren hura, nolabait esateko, oinak lurretik **altxatzeke**, kontatuko ez dugun patu distira gutxiagoko batekin topo egitera abiatu baitzen. Juan Garzia

---

altxazale ik **altxatzaile**.

---

altxirri *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi) iz* ardi gorotza. ik **arkin**; **arkorotz**.

Hurbiltzean, artalde baten usain zalantzagabea sumatu zuen, eta belar gainean ardien kaka-pittola mordoa ikusi, **altxirria**: agerikoa zen larre hark bazuela zaintzailerik. ETC-literatura, saiakera

Ben Howthen gainaldeko errododendroetan ahuntz bat urrats seguruak eginez, **altxirria** zeriola. ETC-literatura, saiakera

Mutil kozkorrak saihetsak bistan ari ziren **altxirrian** bainatzen, bularralde oraindik infantilekin elkarren kontra tope egin eta atzerantz erortzen ziren beso zabalik. ETC-literatura, saiakera

---

altxo ik **altzo**.

---

altxonbide *(orobat **altxunbide**) iz* artzain bidea; abelbidea.

Larunbat goizean, Bardeetara doatzin artzainak dira gurutzatuko: batzu **altxunbidean** barna (kabalentzat idekitako bidea) dira ibiliko, bertze batzu aldiz ardiak xakitzen (markatzen) ariko dira eta ere hamaiketakoa prestatzen, otapurrak eta txulak. Herria

Gero Ahuriko **altxonbidera**, eta handik izen bereko goi-ordokira. Fernando Rey

Izarrek gauak inarrosten zituzten, eta bideek eta **altxonbide** bihurriek, zerurantz goratzen ziren errekasto meharren dizdizak argiturik, hiru ilara osatzen zituzten, bata bestearen gainean. Fernando Rey

---

altxor **1** *iz* balio handiko gauzen bilduma, gehienetan ezkutaturik gordetzen dena.

"Bere zain dagoen **altxor** bat dauka Lurrean gizaki bakoitzak", esan zion bihotzak mutilari. Xabier Aranburu

Hona etorriko bazina, ezkutuan dagoen **altxor** bat aurkituko zenuke! Xabier Aranburu

Basamortuko isiltasuna ere argiztatzen zuen ilbeteak, baita **altxor** bila dabiltzan gizonek egindako bide luzea ere. Xabier Aranburu

Altxor baten bila dabilen abenturazalea naiz ni. Xabier Aranburu

Horrelako gobernu batean, printzeak soilik dauka, edo eduki dezake, **altxorra**, eta beste inork badauka, gehiegizko bihurtzen den uneaz geroztik, printzearen **altxor** bilakatzen da. Iñaki Iñurrieta

Gradelle zaharra, berrogei urte lanean bere **altxorra** metatzeko! Karlos Zabala

Altxorra dagoen leku zehatz-zehatza erakutsi behar zidan unean esnatu egin nintzen. Xabier Aranburu

Atezainburu ziren lau lebitarrek, ordea, etengabeko zerbitzua zuten, eta Jainkoaren etxeko gelak eta **altxorrak** zaintzen zituzten. Elizen arteko biblia

Gurutzearen misterio handi eta miresgarri honen sakon-sakonean daude gordeak graziaren dohainak, bertuteen merituak eta jakinduriaren eta ezagueraren **altxorrak**. Askoren artean

Altxor hori betiko bizitzaren **altxorra** baita. Askoren artean

Liburu horren orrialdeetan, hura **altxorra**! Jon Muñoz

Hirurehun mila libera esterlin balio zuen **altxorrak**. Juan Garzia

Almeida pirataren **altxorra**. Martin Anso

-Orduan egia da kobazuloetan **altxorrak** egoten direla. Bernardo Atxaga

Eta haren burua ere hantxe dugu gorderik, anpuluekin baterat, katedraleko **altxorrean**. Joan Mari Irigoien

Ez da ba itsas hondoko **altxorrak** berreskuratzen lan egiten duten urpekari horietako bat izango, ezta? Xabier Paya

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Tiberiok [...] agindu zuen dirua nahi zutenek **altxor** publikotik jasoko zutela baldin eta lurra diru-kopuru bikoitzaren truke hipotekatzen bazuten. Dama Pobretasunaren Ebanjelioko soroan **altxor** handia aurkitu izan balute bezain sakona zen haien poza. Iñaki Iñurrieta

Frantzisko dohatsuak erantzun zuen: "Handia litzateke, Jauna, **altxor** hori eta oso preziatua, guztiz maitagarria eta desiragarria". Askoren artean

Bere herriei banatu zizkien lonbardiarren aberastasun guztiak eta mundu osoa arpilatua zuten hunoen **altxor** eskergak. Iñaki Iñurrieta

Era berean, zilar, urre, gauza baliotsu eta aurkitu zituzten **altxor** gordeez ere jabetu zen. Elizen arteko biblia

Lagun minari, esan dugunez, **altxor** ezkutuaz mintzatu zitzaion bezala, hala besteei ere irudi bidez hitz egiten ahalegintzen zen. Askoren artean

Horrela, **altxor** baliotsua pilatuko dute etorkizunerako eta egiazko bizia eskuratuko. Elizen arteko biblia

Ondoren, presaka abiatzen da Asisa, non zain baitzuen **altxor** preziatua, bere sufrimendu eta larrialdi guztiak. Askoren artean

altxor agorrezina baita gizakientzat. Elizen arteko biblia

Altxor bikain eta oparoa zuhurraren etxean; zentzugabeak dena eralgiten du. Elizen arteko biblia

Zeren, hain **altxor** bikain eta jainkotiarra izanik, ez baitugu merezi guk geure ontzi txit ziztrinetan edukitzea. Askoren artean

Etekin distiratsuarekin ahoa bete poz, errementariak fardel batean bildu zuen **altxor** sortu berria, bidaia baterako prest. Anjel Lertxundi

Urepeleko Jean Biurretak **altxor** sekulako bat aurkitu zuen behin Maittieneko harkaitzetan. Anjel Lertxundi

Zatarki-paper koipeztatu batez bilduriko pakete bat darama besapean, eta **altxorrik** preziatuena balitz baino areagoko babesa ematen dio. Anjel Lertxundi

Zeruko **altxorra** gordetzen zuen ontzi preziatu hura goitik behera arrailtzen hasi zitzaion eta indar guztiak galtzen. Askoren artean

Egundoko **altxorrak** eskuratu eta harrapakinez beteko dugu etxea. Elizen arteko biblia

-Eman iezadazu zure ardien hamarrena, -esan zion agureak- eta nik erakutsiko dizut nola heldu ezkutuko **altxorreraino**. Xabier Aranburu

Gertatu ohi da, sari txiki batengatik ezin ordainduzko **altxorra** galtzea. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Abaxik, lertxun-orria baino urduriago, hitz magikoak esan zituen lapurren **altxor**-zuloaren aurrean. Anjel Lertxundi

Errege-**altxorraren** arduraduna Azmabet, Abdielen semea. Elizen arteko biblia

Abaxi haitzulora sartu eta dirua patriketan gordetzen hasi zen, ohartu gabe haitzuloko urre-**altxor** hura guztia pilatu zuten Ali-Baba eta berrogei lapurrak hurbiltzen ari zitzaizkiola atzetik. Anjel Lertxundi

Gnomo, iz Ipar-Europako mitologian, ipotx tankerako deabrua, lurraren barrunbeetan bizi dena eta mea-**altxorren** zaintzaz arduratzen dena. Xabier Olarra

Gure bulegoko lan-liburutegia eta txosten-**altxorra**, gero eta aberatsago bihurtzen ari ziren, gainera. Txillardegi

4 irud/hed

Jainkoak zure baitako **altxorra** azaleratzera bidali nau. Patxi Zubizarreta

Zergatik esaten didate miseria gorrian bizi naizela, benetan **altxorrez** beteta baldin badaukat bihotza! Xabier Paya

Altxorra zen motxila niretzat, eta zurekiko nuen zorra kitatzeko, aldiz, hain gauza txikia. Lander Garro

Itsasoan euria **altxorra** izan liteke naufrago bakartiarentzat. Joxerra Garzia

XX. mendea bukatu dela diogu, eta mendeak bere **altxorrean** utzi diguna erakutsian jarri nahi dugula. Pello Salaburu

Zer eman die mendeak bere seme-alabei bere onerako, edo bere txarrerako eta zer da, gizaldiaren historiaren **altxorrean** eskua sartu eta barnean dagoena begiratu nahi dugunean, zer da, diot, gizakiarentzat han aurki daitekeena? Pello Salaburu

Lutxok, tentua, arreta, ezinbestekoa zela esaten zuen; hara, hasten zen, bizi gabe bizitze hori kalean soilik egin daiteke, ez hemen; hemen denbora **altxorra** da. Lander Garro

Bakardadearen **altxorra** horrela gaztigatzen bailitzan! Itxaro Borda

Bere **altxorrik** maitatuena eta desiratuena bertan behera utziz -senarra eta semea, Bilboko bizitza erosoa-, askatasun berria lortzen du, horrela subjektibotasunaren auto-immolazio tipikoa gauzatzen duela. Joseba Zulaika

Herri bakoitzak aldean darama bere ahalmenen **altxorra**, bere arimaren indar sortzailea, bere nortasun berdingabea eta Jainkoak emaniko bestelako dohainak. Jose Morales

Proventzako literaturaren **altxorrik** ederrenetako bezala kontsideratuak izan ziren. Joxean Agirre

Kultur **altxorrek** -ingurune mesedegarri honetan, Mendebaldeko buruek ondorengo bi mendeetan musulmanen eta juduen eskuetatik hartu zituztenek- jatorri helenikoa eta siriakoa zuten. Iñaki Mendiguren

Gaur egun ere bizirik diraute Larramendik zabaldutako zenbait uste:euskalkiak aberastasuna direla, hizkuntzaren **altxorra** direla, euskara natural, fresko, bizi, indartsu eta gihartsu direla, eta antzeko beste zenbait "bertute". Koldo Zuazo

5 estatu, eskualde edo udal baten ondasunen multzoa.

AEBetako **Altxorraren** Departamentuak, edo bere heteronimorik ezagunena omen den Munduko Diru Funtsak gidatu eta babesturiko politikaren ondorio. *Federal Reserve Board*en jardueraren lekua, puntu horretan, Estatu Batuetako **Altxorrak** hartu zuen, Brasil une horretan pairatzen ari zen diru-hustea geldiarazteko asmoz. Iñaki Heras

Azalekoa da agian aldaketa "Munduko milioika giza lagunek sufritzen dute gure gaitasunik eza" esan berri du Paul O'neill-ek, AEBetako **Altxorraren** Saileko idazkari nagusiak. Iñaki Heras

1985. urtearen amaieran, James Baker **Altxorreko** amerikar estatu-idazkariak krisitik "goitik" ateratzeko estrategia berri bat proposatu zuen. Koro Navarro

Horrelako gobernu batean, printzeak soilik dauka, edo eduki dezake, **altxorra**, eta beste inork badauka, gehiegizko bihurtzen den uneaz geroztik, printzearen altxor bilakatzen da. Iñaki Iñurrieta

Alazneren bizkarra laztandu zuen, arkeologo batek galdutako hiri bateko **altxorra** laztanduko zukeen era berean. Fernando Morillo

Troiako **altxorra** orain Puxkin museoan dago. Edorta Jimenez

Txitxikovek erantzun zion egintza edo negozio hura ez zela inondik ere Errusiako legeen eta etorkizunaren kontrakoa, eta jarraian erantsi zuen herri-**altxorrak** berak etekina aterako zuela handik, legeak aginduriko zergak jasoko zituen eta. Jose Morales

Hainbat komunitatek -XIX. mendeko alemanek frantsesen aldean, esate baterako- konplexua sentitzen zutela, eta beren **altxorrak** erakutsiz eta gehiegizko balioa emanez erantzuten zutela. Bernardo Atxaga

6 ***altxor bonu*** *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Erresuma Batuko ekonomia babestea du xede martxan jarritako Likideziaren Plan Bereziak, eta **Altxor bonuak** " kalitate handiko" bankuko hipotekekin behin-behineko trukea egitean oinarritzen da. ETC-prentsa

Fedek, bigarren aldiz, 600.000 milioi dolar gehiago jaulkiko ditu sisteman AEBetako **altxor bonuak** eskuratuta gehi beste 300.000 milioi eskuratzeko aukerarekin -quantitative easing sistemaren bidez-. ETC-prentsa

1.950 milioi euroren balioa zuten **altxor-bonuak** saldu zituen, %4,9ko interes batekin. ETC-prentsa

Erreserba Federalak ez du argitu **altxor bonuak** erosiko dituen, baina esan du erreminta denak erabiltzeko prest dela. ETC-prentsa

Bi aldiz moteldu du **altxor bonuen** erosketaren erritmoa. ETC-prentsa

AEBen hartzekodun handiena da Txina, eta inbertsio poltsan 1,2 bilioi dolar ditu haren **altxor bonuetan**. ETC-prentsa

Jose Rosenthalen argazki hau aberri garailearen ikur bilakatuko da gerra honetan eta hurrengo gerrateetan, eta milioika aldiz biderkatuko dute afixetan eta posta zigiluetan, baita **Altxor-bonuetan** ere. ETC-literatura, saiakera

7 ***altxor publiko***

Augustok **altxor publikoari** esleitu zizkion legeok ezgaitzat jotzen zituztenen oinordekotzak eta legatuak, eta lege horiek lege fiskalen antza hartu zuten, politiko eta zibilen antza baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

Ikuspuntu horretatik, beraz, **altxor publikoari** egokitu beharko litzaioke unibertsitate mailako hezkuntzaren finantzazioa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Merkataritza-bankuen zor metatuaren arazoari heltzeko gero eta finantza-egitasmo burutsuagoak proposatuz, nazioarteko finantza-erakundeek -bankuek, **altxor publikoek**, alde askoko finantza-erakundeek -, argi adierazten zuten ondo zekitela munduko finantza-ordenaren egonkortasuna mehatxatzen zuen arazoaren berri. Koro Navarro

Horrela bada, nahiago zuen **altxor publikoaren** zati hori beste batzuekin partekatu eta Estatuarena baino proportzio murritzagoetan. Bego Montorio

Estatuak eta **altxor publikoak**, merkataritzak eta plazeraren munduak, denek eusten zioten zutik Rübsam doktorearen goi mailari. Anton Garikano

Girolamo Cardanoren aita, Fazio, **altxor publikoko** prokuradorea, doktorea, legelaria, eta eruditoa zen; Berpizkundeko gizon peto-petoa. Jon Muñoz

Giza eskubideen bortxaketa eta **altxor publikoari** 120 milioi dolar lapurtu izana leporatu ondoren Parisera erbesteratu zen 1986. urtean. Berria - Mundua

Altxor Publikoarentzat ez da batere errentagarria zentimo bateko txanponak egitea. Berria - Ekonomia

8 ***altxorraren bila***[1]

Bizkaiko hiriburuko Euskal Museoak eskola umeei zuzenduriko ekimenarekin hasiko du eguna; **Altxorraren bila** jolastuko dira haurrak, eta horren ondoren, gaztaia egiteko prozesua erakutsiko zaie. Berria - Kultura

Goiz-goizetik nabari da halako kilika berezi bat, beste jolas guztiak alde batera utzita "**Altxorraren bila**" jardun beharko baitute, taldeka bilduta, goiz osoan zehar. Xabier Mendiguren Elizegi

9 ***altxorraren bila***[2]

Baina gu museora ez gara horien bila joan, Troiako **altxorraren bila** baino. Edorta Jimenez

Okilak, rapsoda bat baino zurrunago, nire lotsaren neurriak hausten segitu zuen bere borondate onenaz: -Altxor baten jabe egin nahi duenak, bakarrik joan behar du **altxorraren bila**. Anjel Lertxundi

Orexaraino heldua nintzen, baina nora jo ez nekiela nengoen berriro ere, **altxorraren bila** jarraitzeko bidea markatuko zidan maparik gabe. Juan Luis Zabala

10 ***altxorraren letra*** *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Finantzak Finantzetan, **Altxorraren letrak** Estatu batek edo berau ordezten duen Altxorrak, jaulkitzen dituen tituluak edo bonuak dira, epemuga urtebete baino laburragoa dutenak. ETC-entziklopedia

Altxorraren letrak zirkulazioan jartzea onuragarria zen, likidezia handia ematen zielako merkatariei, haien ondareak sortutako interesean oinarritua, eta hartara mozkin txikiagoen truke jardun zezaketelako, prezioak apalduz eta kontsumoa sustatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

MMAIFen ezaugarria da partaideen aurrezkiak epe laburrerako aktibo finantzarioetan bakarrik ezartzen dituztela; hau da, **Altxorraren Letretan**, Estatuaren Bonuetan edo enpresako ordaindukoetan. ETC-prentsa

Altxorraren letrak Ekonomiako eta Ogasuneko Ministerioak jaulkitzen ditu, urtebeteko epean baliabideak eskuratzeko. ETC-prentsa

Espainiako Altxorrak 3.500 milioi euroko zorra jaulki zuen atzo **Altxorraren Letretan**, eta hori inoizko tasa txikienetan egitea lortu zuen. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako altxor (5); **altxor baliosa** (3); **altxor baliotsu** (3); **altxor baliotsua** (5); **altxor bat** (63); **altxor bat aurkituko** (3); **altxor bat bailitzan** (3); **altxor bat da** (4); **altxor bat dugu** (3); **altxor baten** (23); **altxor baten bila** (8); **altxor baten jabe** (4); **altxor berezi** (3); **altxor bila** (7); **altxor ederra** (4); **altxor eta** (3); **altxor ezkutu** (3); **altxor ezkutua** (4); **altxor guztia** (6); **altxor guztiak** (6); **altxor guztien** (4); **altxor handi** (4); **altxor handia** (8); **altxor hori** (25); **altxor hori ez** (3); **altxor horiek** (3); **altxor horren** (5); **altxor hura** (9); **altxor idazkariak** (5); **altxor klase** (3); **altxor kutxa** (3); **altxor paregabe** (12); **altxor paregabe bat** (7); **altxor paregabea** (11); **altxor preziatu** (6); **altxor preziatua** (11); **altxor publikoaren** (4); **altxor publikoari** (4); **altxor txiki** (3); **altxor uhartea** (6); **altxor uhartea liburuan** (3); **baina altxor** (3); **baino altxor** (3); **bere altxor** (7); **beren altxor** (3); **beste altxor** (3); **dagoen altxor** (4); **den altxor** (4); **dituen altxor** (3); **duen altxor** (4); **dugun altxor** (4); **egiazko altxor** (11); **egiazko altxor bat** (9); **ere altxor** (3); **eta altxor** (23); **gure altxor** (4); **hainbat altxor** (4); **nire altxor** (3); **snow aebetako altxor** (3); **zer altxor** (7); **zer altxor paregabea** (3); **zituen altxor** (3); **zuen altxor** (6)

altxorra aurkitu (3); **altxorra aurkitzen** (3); **altxorra balitz** (4); **altxorra balitz bezala** (4); **altxorra bezala** (3); **altxorra bildu** (3); **altxorra da** (12); **altxorra dagoen** (3); **altxorra gordetzen** (7); **altxorra gordetzen arduratsuago** (3); **altxorra izango** (4); **altxorra non** (3); **altxorra zen** (3); **benetako altxorra** (6); **bere altxorra** (14); **beren altxorra** (3); **dago altxorra** (3); **den altxorra** (3); **duen altxorra** (5); **eta altxorra** (11); **ez altxorra** (3); **ez altxorra gordetzen** (3); **gaitzeko altxorra** (3); **holako altxorra** (6); **inor ez altxorra** (3); **nire altxorra** (8); **nolako altxorra** (3); **zuen altxorra** (4); **zure altxorra** (7)

aebetako altxorraren (7); **aebetako altxorraren** (7); **aebetako altxorreko** (4); **altxorrak dira** (5); **altxorrak dira** (5); **altxorrak eta** (5); **altxorrak eta** (5); **altxorraren bila** (12); **altxorraren bila** (12); **altxorraren parte** (3); **altxorraren parte** (3); **altxorreko idazkariak** (4); **altxorren bila** (5); **altxorrik handiena** (3); **altxorrik preziatuena** (5); **bere altxorrak** (3); **bere altxorrak** (3); **bere altxorraren** (3); **bere altxorraren** (3); **bere altxorrean** (3); **bere altxorretik** (4); **bere gaiztakeri altxorretik** (3); **dituen altxorrak** (3); **dituen altxorrak** (3); **eta altxorrak** (5); **eta altxorrak** (5); **eta altxorrez** (3); **ezkutuko altxorrak** (3); **ezkutuko altxorrak** (3); **gaiztakeri altxorretik** (3); **john snow altxorreko** (3); **snow altxorreko** (4); **zure altxorraren** (4); **zure altxorraren** (4)

---

altxortegi *iz* altxorra gordetzen den tokia.

Israeldarren eta lebitarren gari-, ardo- eta olio-emaitzak gure Jainkoaren etxeko **altxortegi** hauetara ekarriko dituzte; hortxe gordetzen dira santutegiko ontziak ere, eta horixe dute egoitza zerbitzuan dauden apaizek, atezainek eta kantariek. Elizen arteko biblia

Estatuak, garai hartan, armategiak eta intendentzia-zerbitzuak ez ezik, falta zituen banku zentrala, **altxortegi** publikoa eta funtzionario gaituak ere. Koro Navarro

Harrobia kluben **altxortegia** gaizki dagoenean iristen den salbatzailea al da? Berria - Kirola

Salomonek, Jaunaren etxea eraikitzeko lan hauek guztiak bukatzean, bere aita Davidek sagaratuak ziren urrezko eta zilarrezko gauza eta ontzi guztiak bertara eraman eta Jaunaren etxeko **altxortegian** gorde zituen. Elizen arteko biblia

Ekarri osorik zeuen hamarrenak tenpluko **altxortegira**, nire etxean zer jana egon dadin. Elizen arteko biblia

Hartu zituen Akazek Jaunaren etxean eta jauregiko **altxortegian** zeuden urre-zilarrak eta Asiriako erregeari bidali zizkion eskuerakutsi bezala. Elizen arteko biblia

Guztira hamaika mila kilo zilar eta bost mila eta bostehun kilo urre zegoela **altxortegian**. Elizen arteko biblia

Ohartu zen, ordea, **altxortegian** dirurik ez zela gelditzen eta eskualde hartako zergak murritzak zirela. Elizen arteko biblia

Orduan, nire ondasun guztiak bahitu eta erregearen **altxortegira** eraman zituzten. Jose Antonio Mujika

Gipuzkoaren zorpetze neurritsua, **altxortegi** sendoa, zerga diziplina eta gizarte eta ekonomia eredua ikertu ostean, "kalitate ezin hobearen kalifikazioa" eman dio. Berria - Ekonomia

Aita tanpez gaizkitu zenetik astean bietan egiten zuen hiribururako bidaia, muinetan metatu **altxortegi** musikalean. Itxaro Borda

Iñaki Gabilondo Realeko ekonomia lehendakariordea eta Iñaki Otegi gerenteak klubaren **altxortegiaren** egoera zein den azaldu zuten atzo. Berria - Kirola

Gure ekonomiaren susperraldia da munduko ekonomia suspertzeko tresna eraginkorrena", esan du AEBetako **Altxortegiko** idazkariorde John Taylorrek. Berria - Ekonomia

Gastuak, berriz, errege-**altxortegiaren** gain joango dira. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

altxortegian gorde (4); **altxortegian gorde zituen** (3); **etxeko altxortegian** (3); **etxeko altxortegian gorde** (3); **jauregiko altxortegian** (3)

altxortegiaren egoera (5); **altxortegira eraman** (3); **jauregiko altxortegietan** (3); **tenpluko altxortegira** (3)

---

altxortu, altxor(tu), altxortzen du *ad* altxor bihurtu; altxortzat hartzen dena gorde.

Baten batek esan behar dudanagatik gurutziltza nazan baino lehenago, zeratxo hau aitortu beharrean nagokizue: etxean **altxortu** ditudan libururik onenak dira lehenengo bost-hamar orrialdeak irakurri ondoren apalategira zuzenean bidali ditudanak; hots, beste egun batean irakurtzeko utzitako liburuak. Berria - Kultura

Bere bihotzean **altxortu** zuen. Matías Mujika

---

altxortze *iz* altxor bihurtzea.

Inolako fruitu ekonomikorik izango ez duen aberastasun **altxortzearen** aldean, inbertsioa eskatzen duten ondasunak gorde nahiak ekonomia hazkundea areagotzen duela. Iñaki Heras

---

altxorzain *iz* enpresa eta kidekoetako ondasunak zaintzen eta administratzen dituen pertsona.

Mitridates **altxorzainaren** esku utzi zituen, eta honek zenbatu eta Xexbatzar Judako gobernariari eman zizkion. Elizen arteko biblia

---

altxunbide ik **altxonbide**.

---

altzaiar *iz* Zuberoako Altzaikoa, Altzaiko biztanlea.

Ni beno zaharxeago den **altzaiar** batek erran deit holakoak zirela haren haur denborakoak. Herria

Jean Pierre Récalt **Altzaiarra** düküe errejenta. Herria

Haatik amak gütiago züan, **altzaiarra** izanez. Herria

---

altzairatu, alzaira(tu), altzairatzen du *ad* altzairu bihurtu. *irud*

Eutsi zion arnasari, lokatzetan murgildu zenean bezala; **altzairatu** zuen bihotza, dardara hasi zitzaionean bezala. Anton Garikano

---

altzairu *(orobat **altzeiru** g.er.)* **1** *iz* karbono eta burdinazko aleazioa, karbono proportzioa %1,6 ingurukoa duena.

Altzairua, beira, baldosak eta hormigoia izango dira etxe-orratzen materialak. Josu Landa

Lehen aldiz ikusi eta bere tristura sakona sumatu nuenean, lore zuri, harro eta tentea ikusten ari nintzela iruditu zitzaidan, lilia bezain delikatua eta, hala ere, zurruna zela jakin nuen, elfoen erementerietan landutako **altzairua** bezain gogorra. Agustin Otsoa

Horrelako arerioaren aurrean arma altxatzera ausartzen denak **altzairua** baino sendoagoa izan behar du, kolpeak berak suntsiturik eroriko ez bada. Agustin Otsoa

Sendotasun mekanikoan, adreilua edo hormigoia baino askoz hobea da hezurra, zura eta metal asko baino hobexea, eta ez **altzairua** baino askoz txarragoa; izatez, **altzairua** baino askoz sendoagoa da, pisuak oinarri hartuz gero. Irene Aldasoro

Horrelako arerioaren aurrean arma altxatzera ausartzen denak **altzairua** baino sendoagoa izan behar du, kolpeak berak suntsiturik eroriko ez bada. Agustin Otsoa

Pippin laster egon zen beltz eta zilar koloreko arropa arrotzekin jantzita: plakin txikia, **altzairuz** egindakoa agian, baina atxabitxia bezain beltza hala ere; eta hegal garaiko kasketa, alboetan bele-hego txikiak eta koroaren erdian zilarrezko izarra zituena. Agustin Otsoa

Altzairuz eta bitraz eraikitako aterpean gaitzeko oihartzuna hautematen zela gogozkatu zuen Edmeak. Itxaro Borda

Patio eta ziega itzelak eta aterik gabeko harresi labar bezain bertikaleko presondegiak, eta **altzairu** eta diamantezko ate erdi irekiak. Agustin Otsoa

Burdinazko ateak eta **altzairuzko** erroek, ordea, ederki eutsi zioten. Agustin Otsoa

Bolizko giltzadura artifizialak erabili zituen, 1890ean,Thomas Gluck kirurgialari alemanak; nikeleztaturiko **altzairuzko** torlojuz lotzen zitzaizkion eskeletoari, inoiz kolaz sendoturik. Irene Aldasoro

Polio kasuetan, arnasketarako muskuluak paralizatu direnean, **altzairuzko** birikaren gisako arnasgailu mekaniko baten bidez airea zuzenean trakeara (zintzurhestera) sartzen da presioan, eta, handik, gaixoaren biriketara igarotzen da. Irene Aldasoro

Kanpoan zerua bizkor ari zen aldatzen; belusezko urdin ilunetik **altzairuzko** gris hotzera, eta gero, astiro, urrez zipriztinduriko arrosara. Iñaki Mendiguren

Gizon batzuk ere erdi ikusi zituen, arma **altzairuzkoak** eskuetan. Felipe Juaristi

Lanerako tresnen eta armen musika **altzairuzkoa**, ezpataren eta aitzurraren musika nekatua. Felipe Juaristi

Rohango neskatoa, erregeen ondorengoa, ihia bezain malgua baina **altzairua** bezain suberatua, liraina baina ikaragarria. Agustin Otsoa

2 (izenondoekin)

Haren begiak nigan zeuden landaturik, **altzairu** zorrotz baten gisara. Aingeru Epaltza

Altzairu forjatua, aluminioa, kobrea, nikela, burdina forjatua. Lopez de Arana

Ikusi beharko hituzke **altzairu** hutsezko eraikinei buruz dituen planak. Lopez de Arana

Altzairu beltzean landutako buru ikaragarria, esaterako, otso amorratuaren irudia zen, eta hondamendien oroigarri zuzena zen. Agustin Otsoa

Noranzko guztietan biltzen zituen xingolak nire gorputz adarrak eta enborra, **altzairu** suntsitzaileak egin beharreko bidekoan izan ezik. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

Jaun Jakob nire lokiak aztertzen ari zen, baina banekien ez zuela hor inongo **altzairu** kolperen arrastorik atzemanen. Aingeru Epaltza

Berehala itsuaren biolinak jotako soinuak, ostatu hartan gora hegaldatuz, gaina hartu zien soldaduen **altzairu** soinuei, eta erabat menderatu haien ezpata ezpataren aurkako hots eta dilindak, haien arteko deiadar eta heiagorak. Felipe Juaristi

-Nahikoa dugu -esan zuen Lupinek, eta Harryk inoiz entzun gabeko **altzairu**-doinua zuen bere ahotsean-. Iñaki Mendiguren

Mokoa **altzairu**-kolorekoa zuten, eta begi handi distiratsuak laranja-kolore bizikoak. Iñaki Mendiguren

Errepidean aurrera egin zuten, hango eta hemengo putzu **altzairu**-urdinak saihestuz. Lopez de Arana

4 irud/hed

Altzairuzko begiak, sudur fin okerra eta oliba-koloreko larruazala zeuzkan eta bere ezpainei halako muzin-kutsu arin bat zerien. Lopez de Arana

Horrenbestez, labanen eta gainerako **altzairu** zorrotzen inguruko ipuinen eskasia nabari lezake, akaso, Borgesenera ohituriko begi zoliak. Juan Garzia

Emaizkiozu **altzairuak**, Osrik gaztea. Juan Garzia

Arnasarekin batera hartzen duzu hura, gorputz-adarrak lasaitu egiten zaizkizu, utzi egiten diozu arduratzeari, are **altzairuak** eztarria ukitzen dizunean ere. Oskar Arana

5 *aleazio altzairu* *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Bizikleta-kate gehienak **aleazio-altzairuz** eginda daude, baina badira nikelatutako modeloak, oxidazioa eragozteko edo arrazoi estetikoengatik egiten direnak. ETC-entziklopedia

Soldadurarik gabeko hodiak, **aleazio altzairuzkoak** eta karbonozkoak egiten dituzte Amurrioko plantan. ETC-prentsa

Hotzean eta beroan xaflatutako **aleazio altzairuzko** barra ugerrezinak egiteko unitatea, IG ikerketa eta garapen zentroa, eta bulegoak. ETC-prentsa

Hotzean eta beroan xaflatutako **aleazio altzairuzko** barra ugerrezinak egiteko unitatea, IG ikerketa eta garapen zentroa, eta bulegoak. ETC-prentsa

Aleazio-altzairu batek duen trakziopeko tentsio-deformazio portaera. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *altzairu berezi*

Aeronautikan erabiltzen diren **altzairu berezien** tratamendu termikoagatik UNE-EN9100 aeronautika ziurtagiria lortu du Atxondo Industrias Teyk. Berria - Ekonomia

7 *altzairu fabrika*

CCOOk jakinarazi zuenez, "Eusko Jaurlaritzak ez ditu inola ere ez salduko Sestaoko **altzairu fabrikan** dituen akzioak». Berria - Ekonomia

8 *altzairu fabrikatze*

Aurtengo helburua: orenean 135 tona **altzairu fabrikatzea**, iaz baino bost gehiago. Herria

9 *altzairu gozo* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Tubos Forjadosek, hasiera hartan, burdinazko eta **altzairu gozozko** tutuak produzitzen zituen. ETC-prentsa

Haustura hauskorra **altzairu gozoan**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Artezten diren material ohikoenak hurrengoak dira: aluminioa, letoia, plastikoa, burdinurtua, **altzairu gozoa** eta altzairu herdoilgaitza. ETC-entziklopedia

1850ko hamarkadaren bukaeran Henry Bessemer altzairua egiteko prozesu berri bat asmatu zuen, prozesu honetan airea urtutako arrabiotik pasaraziz **altzairu gozoa** ekoiztuz. Hau eta XIX. mende eta aurrerako prozesuek burdin forjatuaren ekoizpenari bukaera eman zioten. ETC-entziklopedia

Alderantziz, **altzairu gozoa**, karbono gutxikoa zenez, erraza gertatzen zen forjaketarako nahiz beroketa eta soldadura goria egiteko, aingurak bezalako pieza handietan. ETC-entziklopedia

Askotan, harilaren barruan material ferromagnetiko "bigun" bat sartzen da, **altzairu gozoa** adibidez; ondorioz, elektroimanak sortzen duen eremu magnetikoa sakonki indartzen da. ETC-entziklopedia

10 *altzairu herdoilezin*

Egitura horretatik **altzairu herdoilezinez** eginiko tutu batzuk ateratzen dira, eta forma zein espazioarekin egiten duten jolasari esker obra berezi bihurtzen dute. Berria - Kultura

Fagorrek 6.000 metro koadroko lantegia zabalduko du Turkian bere etxekotresnen hotzaren lerroa eta **altzairu herdoilezinezko** tresnak egiteko. Berria - Ekonomia

11 *altzairu herdoilgaitz*

Altzairu herdoilgaitzeko hodientzat "urrezko sasoia» aurreikusi du Alvaro Bidegain Tubacexeko lehendakariak, eta eskaria urtero-urtero %4 eta %6 artean hazten dela azaldu du. Berria - Ekonomia

Altzairu herdoilgaitzaren usaina adi zitekeen nire ama zetorren aldetik, eta erabaki irmoaren aldatu ezina sentitu zen airean, erremediorik ez zuen zerbait. Joxan Elosegi

Noizbait, **altzairu herdoilgaitzezko** txapaz egindako trena agertu zen. Iñaki Zabaleta

Korporazioko presidentea Jorge Gerdau atzo izan zen Bilbon, Basauriko Sidenorren lantegian **altzairu herdoilgaitza** ekoizten hasi diren egunean. Berria - Ekonomia

12 *altzairu ijeztu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Beroan egiten den **altzairu ijeztu** produktua, bere sekzioa H forma dauka. Aldaera desberdinak daude IPN profila, IPE profila edo HE profila bezalakoak, guztiak forma erregularrarekin eta prismatikoarekin. ETC-entziklopedia

13 *altzairu laminatu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Zenbatekoari dagokionez, muga-zerga %30ekoa izango da lehen urtean, %24koa bigarrenean eta %18koa hirugarrenean, dela automobilentzako eta etxetresna elektrikoentzako **altzairu laminatuetan**, dela janariak, edariak eta bestelakoak paketatzeko latorrietan, dela altzarientzako, ekipamenduentzako eta motorren ardatzentzako barra beroan laminatuetan/hotzean bukatuetan. ETC-prentsa

14 *altzairuzko ukabil* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Altzairuzko ukabila, zuzenean pertsonaren eskura, edo, zehatzago esanda, esku uharrari eta eskuko hatz koskorrei egokitutako egitura bat duen arma zuri bat da. ETC-entziklopedia

Athleticeko jarraitzaileei kendu zitzaizkien borrak, labanak, harriak, **altzairuzko ukabilak**, bengalak eta antzeko tramankuluak... ETC-prentsa

Aberri beste asalto bibotedunak, Canal garaiezinak **altzairuzko ukabilak** goratu zituen. ETC-literatura, saiakera

15 *karbono urriko altzairu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Karbono urriko altzairua (suberatua). ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

altzairu eta (12); **altzairu fabriketako** (5); **altzairu koloreko** (4); **altzairu zorrotzaren** (3); **altzairua baino** (6); **altzairua bezain** (4); **altzairua eta** (5); **altzairuaren prezioa** (4); **altzairuzko begiak** (3); **altzairuzko bola** (6); **altzairuzko eraikin** (3); **altzairuzko eskultura** (4); **altzairuzko labana** (4); **altzairuzko xafla** (5); **altzairuzko xaflak** (4); **altzairuzko xaflaren** (3); **du altzairuzko** (3); **eta altzairu** (10); **eta altzairua** (5); **eta altzairuaren** (8); **eta altzairuzko** (14); **munduko altzairu** (5); **safam altzairu** (5); **tona altzairu** (6); **zuen altzairu** (3); **zuen altzairuzko** (4)

---

altzairugile **1** *iz* altzairua ekoizten duen enpresa.

Arcelor **altzairugilea** Espainiako Aceralia, Luxenburgoko Arbed eta Frantziako Usinor-Sacilor batzetik sortu zen. Berria - Ekonomia

Baostell **altzairugileak**, FAW autogileak eta Sumitomok osatutako partzuergoak egin du eskaria. Berria - Ekonomia

Hala ere, **altzairugilea** ez zen Ibex-35en galerak izan zituzten zazpikotean. Berria - Ekonomia

Altzairugileek prezio igoera bizi dute (Arcelor atzoko onena izan zen, %4,15) eta hegaldi konpainiek ere bidaiari kopuruan igoera espero dute. Berria - Ekonomia

Erabaki horren bidez, munduko **altzairugile** handienak produktibitatea "bultzatu" nahi du. Berria - Ekonomia

Mittal Steel, munduko **altzairugile** handienak egin du EEP hori. Berria - Ekonomia

Pekingo gobernuaren esanetan, bost herrialde horiek "kostu azpitik" saltzen ari dira, eta, hortaz, Txinako **altzairugileei** kalte handia egiten diete. Berria - Ekonomia

THYSSENKRUPP: **Altzairugile** alemaniarrak iragarri du maiatzaren 12an irabazi handiak iragarriko dituela. Berria - Ekonomia

2 (izenondo gisa) altzairua ekoizten duena.

Olaberriako enpresa **altzairugileak** Arcelor taldekoa orain 2,5 milioi euro pagatu beharko ditu orain. Berria - Ekonomia

---

altzairugintza *iz* altzairua eskuratzea eta lantzea; altzairuaren industria.

Industri hondakin gutiago izaiteko asmoz, Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailak hitzarmen bat izenpetu du 187 lantegirekin, hitzarmen horri esker 2.626 tona hondarkin arriskitsu gutiago ekoiztearen menturarekin, bereziki zimenta, kimika, **altzairugintza**, papera ala zeramika sektoreetan. Herria

Mittal Steel **altzairugintzako** talde erraldoiak Arcelorrez jabetzeko egindako eskaintzarekin arduratuta daude sindikatuak, eta Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakaria ere bai. Berria - Ekonomia

Wall Street Andrew Carnegie **altzairugintzako** magnateetako bat zen. Xabier Olarra

Altzairugintzan soilik, zortzi urteko epean, materialen %64 birziklatu eta berriz merkaturatzen dute. Berria - Euskal Herria

Oligarkak eta ikatz eta **altzairugintzako** beren langileek esan zuten prest zeudela Janukovitxek gaztetan izan zituen bi zigorrak lapurretagatik eta eraso batengatik ahantzi eta lehen ministro gisako ibilbideagatik harengan konfiantza izateko. Berria - Euskal Herria

Espainiar inperioak, kasu, hainbat koloniatan olibondoak eta mahastiak landatzea debekatu zuen; edota Britainia Handiak Bengalako ehungintza edota Egiptoko **altzairugintza** industria eraitsi zituen. Iñaki Heras

Egoera hark langileak gogoeta egitera behartu zituen, eta baita lehenengo eztabaidak sortu ere **altzairugintza** sektorean zebiltzan langileen artean. Berria - Ekonomia

---

altzairutegi *(orobat **altzeirutegi** g.er.)* *iz* altzairu fabrika.

120 langile ari dira **altzairutegi** horretan lanean. Herria

Bizkaiko **Altzairutegi** Trinkoan kobalto-60 gai erradioaktiboaz kutsatutako txatarra atzeman zuten joan den astean, asteazkenean. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriko kazetak ekarri zuen berria: ADA Baionako portu hegiko **altzairutegia** eskuz aldatzera doala. Herria

Altzairutegia itxi ostean jaso zuen kalte-ordainarekin taberna erosi, eta izena aldatu zion. Iban Zaldua

ADA **altzairutegiak** 1080 269 tona trafiku ekarri dio Baionako portuari jaz. Herria

Gune horiek dituzte hotzenetan kondatzen politika hautuetan, hor direlarik ikatz meatzak, **altzeirutegiak** eta ere langabezia haundiskoak, eta badituzte holako 16 Estadu bakotxak beroarazi nahiak. Herria

Enpresa komiteko CGT ordezkariek prentsari jakin-arazi diotenez, **altzairutegiak** momentu zailak bizitzen ditu ixtan bat honetan, lan tatsa ezin pagatuan aurkitzen da. Herria

Altzairutegiak labe elektrikoa du eta, beraz, altzairua ekoizteko, beraz, txatarra behar du. Berria - Ekonomia

1950-ean alabainan, Europaren aldeko lehen urrats garrantzitsuetarik batto maiatzaren 9-an egin zela, Robert Schumann sustatzaile, ekonomia mailean, **altzeirutegien** mundu berezi hortan. Herria

Dituen ehun eta hogei langilez gain beste hogeita hiru hartuak ditu hiru hilabeterentzat **altzairutegiko** nagusiak, Bernard Thomassin jaunak. Herria

Trinidad eta Tobagon Iscott **altzairutegi** defizitarioa hartu, eta urte baten buruan errentagarri bihurtu zuen. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ada altzairutegia (4); **ada altzairutegiak** (5); **ada altzairutegiko** (4); **bizkaiko altzairutegi** (3)

---

altzairuzko *izlag* altzairuz egindakoa.

Tira, ba, han, tanpoiak--eta sartzeko kutxa metaliko horietako bat zegoen, eta honako ohar hau zekarren, gutxi gora behera: "Herdoilezinezko **altzairuzko** estaldiari zeure alderantz tira egin iezaiozu". Joxerra Garzia

Altzairuzko punta itsatsita gelditu da. Pablo Sastre

Gizarterako leihoa zabaltzean, errealitatea sartzen zaitak bere **altzairuzko** hatzaparrekin orroaka. Patziku Perurena

Isiltasuna **altzairuzkoa** izan litekeela orduantxe ikasi nuen nik. Joxerra Garzia

Itsasgainak **altzairuzko** xafla bat zirudien, eta ontziek xafla hartan harrapatuak ziruditen, finko eta geldi, sendo eta gotor. Joan Mari Irigoien

Bi urrats gabe, **altzairuzko** esku batek atxiki ninduen lepotik. Aingeru Epaltza

Angie zutik zihoan, beso bat gora, **altzairuzko** euskarri distiratsuari indarrez eutsiz -milioika eskuren igurtzialdiek eta presioek lustratua-, eta arnasa luzea hartu zuen, igarotako presaldia, ia egunerokoa bestalde, uxatzeko. Iñaki Zabaleta

Bederatzi milimetroko kalibrea, erabat **altzairuzkoa**, ehun eta hogei milimetroko luzera kanoian, hamasei kartutxo ilara biko kargadorean. Sonia Gonzalez

Abendua burdinezkoa, ilbeltza **altzairuzkoa**, dio beste batek. Pello Zabala

Gaindiezinak diruditen hormak zeharkatu, **altzairuzkoak** diren pertsonak urtu eta diktadorerik ankerrenak ere botatzeko adina ahalmen du komunikazioak. Txema Ramirez de la Piscina

Atzamar itsuek, metxeroarekin batera, bestelakoa haztatu dute hor barruan: Susok oparitutako **altzairuzko** labana automatikoa. Paddy Rekalde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

altzairuzko begiak (3); **altzairuzko bola** (6); **altzairuzko eraikin** (3); **altzairuzko eskultura** (4); **altzairuzko labana** (4); **altzairuzko xafla** (5); **altzairuzko xaflak** (4); **altzairuzko xaflaren** (3); **du altzairuzko** (3); **zuen altzairuzko** (4)

---

altzairuztatu, altzairuzta(tu), altzairuztatzen *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* **1** du *ad* altzairu bihurtu. ik **altzairatu**.

-Zure informazioa zaharkiturik dago -bota zion zakar-, azpitik eta gainetik **altzairuztaturik** nago burdinazko ezkata eta harribitxi gogorrez. ETC-literatura, saiakera

Itziar Oizek hasieran ertzetara begiratu ostean, **altzairuztatutako** eta arragotutako begirada betea zuzendu zion areto erdian zegoenari eta hori egiten zuen bitartean bozgorailu baten durundia nabaritu zuen barrenean. ETC-literatura, saiakera

4 eta 40 milimetro arteko zabalera duen burdin **altzairuztatuko** orri batetaz osatua dago, alaka batek eratutako aho batekin eta zurezko kirtenarekin. ETC-entziklopedia

2 (era burutua izenondo gisa)

Hermengoa kapitainak altzairuzko ezpata zorrotzak erabiltzen zituen, aihotz txikiak, burdin zorrotz eta **altzairuztatuak** zeramatzaten lantza luzeak eta dardo jaurtigarriak; horrez gain, egurrezko baleztak poleaz hornituak, harri zorrotzak jaurtitzeko, zagitak bailiran. ETC-literatura, saiakera

Adibidez, denek gogoan dugu 2002an Betelemen Yaser Arafati egin zuen bisita, israeldarrek beren gerla-tresna **altzairuztatuekin** Jesusen sortzearen basilika setiatu zutelarik, eliza barnean 200 palestinar aterbetuak zirela-eta. ETC-prentsa

---

altzamai *iz* zurezko edo burdinazko armazoia, sare forma duena, zerbait zintzilikatzeko erabiltzen dena.

Gogoetabide horri segituz, berdin esan daiteke pobreak garela oso, kaian **altzamai** bat bera ere ez dugulako, edo pobreak garela baina ez dugula geure burua hondatzeko arriskurik. Bego Montorio

Ekin mutilak, eragin **altzamaiari**. Bernardo Atxaga

---

altzari **1** *iz* etxearen horniduran erabiltzen diren edo etxea janzten duten tresna mugigaietako bakoitza. ik **errediza**.

Altzari, besaulki eta dibanak, babes-oihalak kendurik, berpiztu egiten ziren, eta baita paretetako erretratuak ere. Xabier Olarra

Altzari gutxi zeuzkan, baina ez ziren falta Ama Birjinaren irudia eta hainbat santuren koadroak, ertzetan oihal urreztatuak zituztenak. Karlos Zabala

Etxe osoa arakatu zuen, etxapetik hasi eta ganbararaino, armairu guztiak zabaldu zituen, **altzari** guztiak miatu. Josu Zabaleta

Artelan handia egiten zuen, inondik ere; zurgin bat ematen zuen **altzari** bati berniza ematen. Josu Zabaleta

Handik itsasontziz igorritako alfonbra eta altzariek, eta hemen inguratu ditudan beste **altzari**, alfonbra eta gortinek miresmena eragiten dute, ia inbidia esango nuke. Ramon Etxezarreta

Ez nion **altzari** bati baino jaramon gehiago egiten, berak ere ez baitzuen gehiago eskatzen. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Altzari ederra da: begira ze hanka dituen. Harkaitz Cano

Gela **altzari** bikainez eta gustu handiz jantzita dago. Antton Olano

Altzari sendoa zen, lehoi itxurako hankekin beiraz estalitako egurrezko gainaldeari eusteko. Bego Montorio

Altzari berezi batzuk sortuz **altzari** ergonomikoak eta talde txikiagoak eginez konpon daiteke arazoa. Berria - Euskal Herria

Alfonbra baten gainean batetik bestera arrastaka eramaten diren **altzari** pisutsuen eran. Harkaitz Cano

Gau hartan, lotara joan aurretik, egongelako **altzari** astuna zabaldu eta etiketan "Napoleon" zekarren botila ia agortu bat hartu nuen. Alberto Ladron Arana

Margolanak eta **altzari** finak egokitzen eta zaharberritzen ditut, eta zenbaitetan salgai jartzen. Javi Cillero

Aberatsa nintzenez, **altzari** zaharren eta antzinako gauzen zale nintzen. Josu Zabaleta

Idazteko **altzari** bikainak bihurrikatuak zituen oinak, eta larruz estalia zegoen. Jon Muñoz

Gela txiki samar batean, hantxe pilatzen ziren **altzari** arruntak, idazmahaiak, mikroskopioak, eta euliak hazteko botilak. Juan Garzia

Une batez, Mitxelenaren bulegoko **altzari** maiztuei begiratu nien, eta Gochokiko beste geletako itxura duin baina hitsa etorri zitzaidan gogora. Alberto Ladron Arana

Gela zabala zen, erraldoia, baina **altzari** ugariek eta oihal zein brontzezko apaingarri astunek gordeleku estu baten irudipena sortzen zuten. Alberto Ladron Arana

Paper bat atera zuen mesanotxe antzeko **altzari** baxuko kaxoitik. Josu Landa

Altzari ilun dotore askoak, zorua linolioz eta alfonbraz estalia, irrati bat, lanpara eder bat, dena zoragarria, benetan. Josu Zabaleta

Jakin beharra dago gela horretan hiru mahai zeudela: idazmahaia, dibanaren aurrean; joko-mahaia, leihoen artean hormaren ondoan; zoko-mahaia, logelako ateak eta **altzari** herrenez beteriko gela huts batera ematen zuen ateak osaturiko angeluan. Jose Morales

Altzari biluzi batzuk besterik ez. Agurtzane Juanena

Telefono zaharrak, ziztatuta daudela ematen dutenak, inguruko **altzari** barrokoak oihartzuntzen dituzten tutuak. Harkaitz Cano

Gonbidatuen gelak **altzari** ingelesez hornituak zeudean, eta bainuontzia zilarrezkoa zuan. Xabier Olarra

Altzari napolitar apainduraz beteegien artean. Oskar Arana

Lehenbizikoa, "mahai familiarra", zurezko **altzari** bat da, ohol lau bat, lau hankarekikoa. Juan Garzia

Diseinuzko **altzari** postmodernoak. Unai Iturriaga

Bonbilla euliek kakaztuak, zurezko **altzari** herrenak, hautsak eta lokatzak. Joseba Sarrionandia

Margolanak lauki urrekara bat zeukan, eta pareta zuri batean zegoen eskegita, kajoiz betetako gerezizko **altzari** baten gainean. Xabier Olarra

Harritzekoak ziren legelariaren itxura hotza eta mantal zoldatsua, inola ere ez baitzetozen bat kaobazko **altzari** ederrekin. Jose Morales

Lacik behin esan zuenez, Nunuk berniza galdua zuen, intxaurrezko **altzari** zahar baten moduan. Ander Irizar

Egongela, Weldon andrearen irudikoz, aski itxurosoa zen zegoen-zegoenean; beti bezain itxurazkoa, tximinia-erlaitz hura eta betiereko **altzari** zaharkitu haiek. Mirentxu Larrañaga

XVII. mendeko italiar **altzari** bat begiztatu nuen zaharkin denda batean. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetako lehen osagai gisa)

Duffy jaunak berak erosiak ziren gelako **altzari** pieza guzti-guztiak: burdinazko ohe beltza, burdinazko apain-mahaia, kanaberazko lau aulki, arropak esekitzekoa, ikatzontzia, su-babeskia eta burdinak, eta mahai karratu bat, idatz-apal bikoitz bat gainean zuena. Irene Aldasoro

Kanape bat, kutxa handi bat eta noski zenbait garbiketa-tresna ziren hango **altzari**-hornidura ia guztia. Juan Garzia

Harekin gurutzatzeko egokieren bila hasi nintzen **altzari**-garraioan ikusi nuenetik. Anjel Lertxundi

Korrituak zituen hiriko **altzari**-denda guztiak, aukeratuak oihalak, alfonbrak eta tapizak, zorrotz eta arretaz aztertuak kolore, forma eta konposizioaren aukera desberdinak. Patxi Iturritegi

Afifi anderea, bere ustetan neurriz gora, ordaintzen ari zen, izan Al-Azar-eko **altzari** dendetan izan Muski kaleko arropa saltokietan. Patxi Zubizarreta

Gelak eta dendak argilun liluragarriz beteriko leizeak dira, non isla eta distira artean ikusten ahal diren kapritxoko **altzari** mota guztiak, Espainian bakarrik topatzen diren kutxak, Pasaian bakarrik topatzen diren ispiluak. Koldo Izagirre

Auzoan bizi zen **altzari** merkatari batek ama dohakabearen hilzoria kontatu zion. Karlos Zabala

Altzari-saltzailea, Colón de Larreategin Versalles denda daukana. Javi Cillero

Altzari diseinatzailea dela esan dit. Patxi Iturritegi

Lau hego izaten dituzte, nerbio txikiz egindako egituran, arotz baten ordez **altzari**-apaintzaile batek egindako gurtetxe afiligranatua balitz bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Niri izugarri gustatzen zait **altzari** katalogo baterako idaztea. Berria - Kultura

Momentuz gauzak **altzari**-biltegi batean ditugu. Lopez de Arana

3 (hitz elkartuetako bigarren osagai gisa)

Gelako bazter batean, zoko-**altzari** bat, oinetakoz beteta zegoena. Jon Muñoz

Mikelek ezkutaleku gisa aukeratutakoa bezalakoa zen, bere ohe, armairu, arropa-**altzari** eta mahaitxoarekin. Aitor Arana

Edari-**altzari** batetik hamabi urteko whisky botila eta bi edalontzi atera zituen. Migel Angel Mintegi

5 ***altzari denda***

Altzari denda baten irratirako publizitate-kanpaina batean, bikote gazte bat ageri zen, beste bikote batenean afaldu eta etxerakoan. Joxerra Garzia

Albiste bat fabrikatzea oso erraza da: hartzazu **altzari denda** erraldoi bat, atzerritarra bada hobe, errepika ezazu publizitatea begi-belarrietan mezu sinple bat txertatu arte, jartzazu Lehendakaria irekitze-egunean txorakeriak egiten... eta egina daukazu dena. Pako Aristi

Belauntzako Sustraiak plataformak ukatu egin du Tolosan **altzari denda** baten aurka egindako erasoarekin zerikusia duela. Berria - Euskal Herria

Altzari denda bat irekitzea ez da inoiz albiste izan, bereizgarriren bat izan ezean behintzat. Pako Aristi

Txikitan amarekin armairu bat erostera joan nintzen Froger **altzari-denda** ikusi nuen. Joseba Urteaga

Korrituak zituen hiriko **altzari-denda** guztiak, aukeratuak oihalak, alfonbrak eta tapizak, zorrotz eta arretaz aztertuak kolore, forma eta konposizioaren aukera desberdinak. Patxi Iturritegi

6 ***edari-altzari***

Bai, badago koñaka **edari-altzarian**, Torres 10. Iban Zaldua

Edari-altzarira jo zuen. Fernando Morillo

Edari-altzari batetik hamabi urteko whisky botila eta bi edalontzi atera zituen. Migel Angel Mintegi

Horretarako, egongela eskematiko bat atondu du besaulkia, telebista eta **edari-altzari** batekin. Berria - Kultura

7 ***hiri altzari***

Eta autoak, eta eskulturak, eta **hiri altzariak**, non zeuden? Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **altzari bat** (8); **altzari baten** (5); **altzari batzuk** (4); **altzari berriak** (5); **altzari denda** (10); **altzari edo** (3); **altzari eta** (18); **altzari eta guzti** (3); **altzari garraioan** (3); **altzari gutxi** (5); **altzari gutxi zituen** (3); **altzari guztiak** (7); **altzari hura** (4); **altzari zahar** (5); **altzari zaharren** (4); **altzari zaharrez** (3); **altzariak ere** (6); **altzariak eta** (14); **altzariak saldu** (4); **altzaririk ez** (3); **altzaririk gabea** (3); **batere altzaririk** (3); **bere altzari** (3); **beste altzari** (5); **edo altzari** (3); **eta altzari** (20); **eta altzariak** (13); **eta altzarien** (3); **etxeko altzariak** (5); **ia altzaririk** (3); **ziren altzari** (3); **zuen altzari** (3)

---

altzaridun *izond* altzaria edo altzariak dituena.

Apartamenduak eta gelak, **altzaridunak** edo gabeak, beti aukeran, pentsioarekin zein gabe. Josu Zabaleta

---

altzarigile *iz* altzariak egiten dituena.

Batetik bestera ibili zen, han eta hemen galdezka, ahaideei, auzokideei, artzainei, albaiteroei, alkateei, abadeei, **altzarigileei** ... mundu guztiari. Bernardo Atxaga

Bere ofizioz **altzarigilea**, bazuen gustu handia zurezko gauza xaharren eta hondatuen erreparatzeko eta erreberritzeko. Herria

Lau urte aprendiz emanik, Pontitora itzuli zen Franco 1953an, baina berehala konturatu zen herrian, gainbehera hasia baitzen, ez zegoela lekurik **altzarigile** batentzat. Xabier Olarra

---

altzarigintza *iz* altzarigilearen ofizioa.

1949an Montepulcianora joan zen, **altzarigintzako** aprendiz. Xabier Olarra

---

altzaritegi **1** *iz* etxe edo gela bateko altzarien multzoa.

Bien artean, nire ohe galantaz landa, besaulki batek, mahaitxoak, armairu beltz batek eta intentsitate erregulagarriko lanparak osatzen zuten **altzaritegi** urria. Aingeru Epaltza

2 altzarien industria saila.

Sullivan Co., **Altzaritegia** eta Biltegia zeritzoneko atearen aurrean neska bat zeukan zain. Lopez de Arana

---

altzariteria *iz* altzari multzoa.

Gainerakoan, tximinian eskegitako zartagina beste sukalde tresnarik ez zegoen bordan, eta honek, burdinazko ganderailuarekin, kapitxeleekin eta ohearekin osatzen zuen **altzariteria** guztia. Koldo Izagirre

Txitxikov gelako **altzariteria** bitxia aztertzen ari zela, alboko ate bat ireki zen halako batean, eta lehentxeago patioan aurkitu zuen giltzain bera sartu zen gelan. Jose Morales

---

altzaritxo *iz* altzari txikia.

Gela-bazterreko **altzaritxo** oinetakoz betean, arkume-larruz estalitako bi bota motz aukeratu zituen. Jon Muñoz

Paretako kolorea berde argia da, ohearen koltxa krema, moketa gris bat dago lurrean, maletatxoa uzten dut komoda ondoan horretarako dagoen **altzaritxo** batean, komuna ondo dago, bainera handia, ez zait bainatzea gustatzen, baina dutxa bat gustura hartuko nuke. Mikel Hernandez Abaitua

---

altzatar *izond; iz* Altzakoa, Altzari dagokiona, Altzako biztanlea.

Haren postua Juantxo Koka **altzatarrak** hartuko du. Berria - Kirola

Más pisos en Alza, zatarrak ia denak, kea eta hautsa, **altzatarra**, ALTZA ZATARRA, bidezuloak, erreka zikinak eta zementu-mokordoak, hatsa eta kiratsa, ALTZA ZATARRA. Joan Mari Irigoien

---

altzatu ik **altxatu**.

---

altzau ik **altxatu**.

---

altzaziano ik **altsaziar**.

---

altze 1 *iz* oreinaren familiako ugaztuna, zaldiarenaren antzeko eitekoa, ilea marroi iluna, burua handia, eta arrak pala moduko adar pitzaduradunak dituena.

Koskoosh zaharrari oroitzapen asko etorri zaizkio gogora, batez ere **altze** bat ehizatu zuen egunekoak, edota gorputzez gorputz arrotz zuri batekin borrokatu zen egunekoak.Koskooshek ostera ikusi zuen **altze** zaharraren azken defentsa adoretsua; gero, buru nekatua belaunen gainera erortzen utzi zuen. Patxi Zubizarreta

2 ***afrikar altze*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Afrikar altze ("Taurotragus oryx") Taurotragus generoko animalia da. Artiodaktiloen barruko Bovinae azpifamilia eta Bovidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

---

altzeimer ik **alzheimer**.

---

altzeiru ik **altzairu**.

---

altzeirutegi ik **altzairutegi**.

---

altzibartar *iz* Altzibar izeneko Oiartzungo auzoko biztanlea.

Joseri egin dioten harrerak ez du inolako aitzakiarik: **Altzibartarrak**, eskuzabal jokatzeko, ez dira ate joka datorrenaren eskuzabaltasuna ezagutu zain egoten. Anjel Lertxundi

Ahitzen ari zen sua bizitu eta gero, **altzibartarrek** dutenetik eman diote eskekoari:zezina, taloa, ardoa. Anjel Lertxundi

---

altzifre *(orobat **altzipres** g.er.)* 1 *iz* nekosta, pinuaren ordenako zuhaitza, enbor-zuta, hosto berde ilunak, adaburu luzea eta sarria, eta zur gorrixka eta usainduna dituena *(Cupresus sempervivens)*.

Harrobiko arearik ez dagoen lekuan, beraz, ibaiko edo itsasoko hondarra erabiliko da garbituta; izeia edo izei hispaniarra urria den lekuetan, **altzifrea**, makala, zumarra edo pinua erabiliko dira. Santiago Iruretagoiena

Ez dira berdin erabiltzen haritza eta izeia, ezta **altzifrea** eta zumarra ere, eta besteek ere ez dituzte nolakotasunak berdinak izaten. Santiago Iruretagoiena

Altzifreak, idi-bihotz arbolak, lizarrak eta palmondo nanoak burumakur zeuden, bost eguneko euriaren eta haizerik ezaren ondoren. Anton Garikano

Menuet fantastikoren bat dantzatzen ari ote dira, argimutil espektro, hilerriren bateko **altzifreen** artean, bide hilobiz inguratuetan zehar, ilargiaren argitan? Josu Zabaleta

Zedroak eta ipuruak ere bertute eta nolakotasun berdinak dituzte; **altzifretik** eta pinutik erretxina ateratzen den bezala, zedrotik, hain zuzen, zedro-olioa esaten zaion koipea ateratzen da. Santiago Iruretagoiena

Haize bolada batek jo du une horretan, eta zabuka egin duen **altzipresetik** euri mehe bat hedatu da eta zipriztin hotzez bete ditu bi gizonak. Pello Lizarralde

Segundo batzuk geroago, **altzifrearen** lurrina tabako beltzarenarekin nahastu zen. Aritz Gorrotxategi

Arrosa librez, **altzifre** azkar beltzez betea dago, lorategi triste bikaina, giza haragiz bazkatua. Josu Zabaleta

Txori baten kexu ahula heldu zitzaien ezker aldeko **altzifre** ilaratik. Aritz Gorrotxategi

Halako batean, **altzifre** usaina etorri zitzaion hego aldetik, errepide estuaren alboetan zeuden zuhaitz ilara tristeen artetik. Aritz Gorrotxategi

2 ***altzifre arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Altzifre arrunta edo nekosta arrunta ("Cupressus sempervirens") "Altzifre Cupressus" generoko zuhaitz espezie bat da, jatorria Asian duena, baina Ipar Hemisferio osoan etxekotu dena, batez ere Mediterraneoaren arroan. ETC-entziklopedia

3 ***Lawson altzifre*** *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Lawson altzifrea ("Chamaecyparis lawsoniana") "Cupressaceae" familiaren espezie baten izen arrunta da. ETC-entziklopedia

Horien artean bi sekuoia luze edo sekuoia erraldoi daude, **Lawson altzifre** bat, araukariak, idi-bihotz arbola eta likidanbarra, eta jende gutxien ibiltzen den aldean bertako zuhaitzez osatutako basoa. ETC-entziklopedia

Landaretza exotikoa du, toki urrunetatik ekarritako espezieak dituena: sekuoia, **Lawson altzifrea**, magnolioa... ETC-entziklopedia

Landatutako espezieak intsinis pinua, **Lawson altzifrea**, Douglas izeia eta alertzea dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi minuturen buruan eta harritxoak atzean utziaz batera, bideari eutsiko diogu, **Lawson altzifreak** eskuinean. ETC-prentsa

Emeki-emeki larre-belardian, aurrean zutitutako **Lawson altzifreetara** joko dugu. ETC-prentsa

"Zuhaitz eklipsea" zer den jakingo duzue ondoren, izan ere **Lawson altzifre** sail trinkoan barrena doa bidea eta eguerdia izanik ere, gaua dela iruditko zaizue. ETC-prentsa

Lawson altzifre basoan sartuko gara, ikusgarria da paisaia aldaketa. ETC-prentsa

4 ***Leylandeko altzifre hibrido*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Leylandeko altzifre hibridoa ("Cupressocyparis leylandii" edo "Cupressus × leylandii") bi genero hauen arteko hibridoa da: "Monterreyko nekosta Cupressus macrocarpa"

eta "Chamaecyparis nootkatensis". ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
altzifrea eta (3); **altzifrea eta** (3)

---

altzifredi *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1) iz* altzifre basoa.

Altzifredi ederra zen, itxia, altzifre bakoitza aldamenekoei, eskuinekoari eta ezkerrekoari, oratzen zitzaien, halako hesi natural trinkoa osatuz. ETC-literatura, saiakera

---

altzipres ik **altzifre**.

---

altzo 1 *iz* eserita dagoenarengan, gerritik belaunetarainoko tartea; mantala edo gona gorantz tolestean gertatzen den boltsa modukoa.

Berriro nahi dute natura bizkorgarriaren geriza bilatu, haur batek bere amaren **altzoa** bezala. Herria

Harantz doa bere bihotza ere, mendebaldera, Fisterra urrun aldera, Bibiren **altzo** epelera. Paddy Rekalde

Amak Mattina **altzoan** hartu zuen eta hitzeman zion Donapaleun panpina berria erosiko ziola. Itxaro Borda

Etxera etorri zitzaigun, babes bila edo, eta amari besarkaturik egon zen, ama baten **altzoa** behar duen haur bat bezala. Juan Kruz Igerabide

Ezkerreko besoaren gainean jarrita nago ni, amak eskuinekoaz **altzoan** heltzen nauelarik. Txillardegi

Franklin andreak, Ernieren burua **altzoan** hartuta, Artzainaren neska abesten zuen kontralto ahots gozo, trebatuaz. Koro Navarro

Altzoan zeukan manta lurrera bota eta gelara joan zen korrika. Unai Elorriaga

Gero, haren aurpegia bere **altzoan** duela etzaten da, atsedenean. Oskar Arana

Inork hartzen ote du sua **altzoan**, jantziak erre gabe? Elizen arteko biblia

Ama Birjinari ere berezko esanahiaz eransten zaizkio, Andre Mariak ere parte hartzen duelako zeruko Aitaren **altzoan** betidanik beteriko jaiotze berean. Joan Mari Lekuona

Motorrean bi lagun ikusiko dituzu, atzekoak **altzoan** lasai asko txahal ttipia hanka-besoak uzkalduta daramala. Gotzon Garate

Artzainak bezala zaintzen du artaldea: arkumea besoan hartu eta **altzoan** eramaten du, ama-berria arduraz gidatzen. Elizen arteko biblia

Kulunka ibili zuen **altzoan**, harik eta umeari begiak ixten hasi zitzaizkion arte, aldi berean bere begiak ere ixten zirela. Koro Navarro

Eta guk ere, aitamen ganik, hekien galtzarrean, **altzoan** eta besoetan, Euskaraz ikasi ditugu gure otoitzak. Xipri Arbelbide

Aitak batzuetan kamioian eramaten ninduenean bezalaxe sentitu naiz: mundua kamioiaren kabinara eta errepidera mugatzen zen, eta orduan ni, aitaren **altzoan** eta eskuak bolantean, boteretsu eta aske sentitzen nintzen, eta gaur ere halaxe sentitu naiz zaldi gainean ibiltzean. Patxi Zubizarreta

Haurra **altzoan** zekarren, eta hura negar intzirika. Aingeru Epaltza

Dardararik gabeko keinu erabakigarriaz zutitu, eta eskukada lehor batez, nire ondoan eserita zegoenaren **altzoko** paper sorta hartu, oholtzara igo eta irakurtzen hasi nintzen. Jon Alonso

Belar-pilaren gainean agondu zelarik, lan-jantzia bota nion **altzora**. Inazio Mujika Iraola

Ahizpa itsuaren **altzora** bildua, txutik dago ahizpa tipia, eta ezin igerri da nork zein babesten duen. Patziku Perurena

Bere **altzora** makurtu da, honek ilea laztandu eta galdetu dio: Zer duzu, zer duzu, zer duzu; baina Idoiak ulu luze zurrun bat baino ez du entzuten. Eider Rodriguez

Katalina Medicikoaz ari naiz, Erromako apezpiku ustelaren **altzopeko** sugeetan sugeenaz. Aingeru Epaltza

Katemeak jauzi egin zuen Joanesen **altzotik** behera, eta txopako gazteluaren aurreko zuloan barrura galdu zen, behingoan. Edorta Jimenez

2 irud/hed

Kernan jauna protestantea zen jatorriz eta, ezkondu zenean sinesmen katolikora bihurtu bazen ere, baziren hogei urte elizaren **altzoa** utzirik zebilela. Irene Aldasoro

Larrunen **altzoan**. Herria

Gaur egun ez dago munstrorik gauaren **altzoan**, ez dugu inor zelatan. Josu Zabaleta

Tarte labur bat, bereziki ilunpea hain agudo argitzen denean, eta txoriak hain agudo kantatzen, oilarrak kukurruku egiten, edo kolore berde xumea hosto aldakorraren antzera indartzen denean olatuaren **altzoan**. Anton Garikano

Isiltasunaren **altzoan**, begiak biltzen hasi zitzaizkidan. Aingeru Epaltza

Edertasunaren **altzoan** gau bat eman nahi izanez gero, ahantz ditzagun geure kezka guztiak. Lopez de Arana

Hizkuntza, definizioz, dinamikoa da, eta dinamika horrek eman dituen fruituen multzoa da literatur tradizioa: ahoz nahiz idatziz, belaunaldiz belaunaldi transmititzen den denboraren **altzoan** babestutako kultur ondarea. Anjel Lertxundi

Brooklyngo Williamsburg auzoa East River ibaiaren **altzoan** dago. Harkaitz Cano

Hitzek, esapideek eta esaerek gutariko bakoitzak bizi izandakoa, oroimena, ahots joanen oihartzuna gordetzen dituzte beren **altzoan**: gure unibertso pertsonala izendatzen, deskribatzen eta kontatzen dute batetik eta, bestetik, unibertso kolektiboa, hizkuntza jakin bateko hiztun guztiek metatu duten jakituria eta jakin-mina osatzen dute. Anjel Lertxundi

Hausnarketa falta harro horrek izutzen du Joseph Roth: inperio austrohungariarra galduz gero, zer gertatuko da inperio horrek bere **altzoan** babesten dituen norabiderik gabeko herri eta gizabanakoekin? Anjel Lertxundi

Hasierak bere **altzoan** du bukaera, zapalduen gainean eraikitzen dira heroiak, egoismoak eragindako porroten galeria da maitasuna. Anjel Lertxundi

Metalezko liburu erraldoiaren **altzoan** lo zegoen arratoi bati ostiko eman zion nahi gabe. Harkaitz Cano

Luze gabe -afaldu ere ez nuen egin- ametsik gabeko lo gogor batek estutu ninduen bere **altzora** eta goizeko hamar eta erdiak arte ez zidan jare egin. Aingeru Epaltza

Laster eroriko naiz lurrera, jangelako mahaiaren gainera, bainuontzira, sarrerako lorontzi txinatarraren **altzora**. Karlos Linazasoro

Arrazoimenak darama zuzenbide zibila Ancient Régime-ren magaletik Iraultzaren **altzoraino**. Andres Urrutia

Horixe egingo baitzuen orduantxe gustura, hartu telefonoa eta ingeniari jaunari deitu, suhiltzaileei deitu, espiritu santuari deitu, gauaren **altzotik** irten zitezen esku bat edo aholku bat ematera. Juan Garzia

Idazkera hizkuntzaren iturburutik jaiotzen baita, sua txingarretik edo ura lurraren **altzotik** bezala. Joxean Agirre

Bizitzaren **altzotik** erausi eta bizitzari buruz inorekin hitz egiteko aukerarik gabe utzi bagintuzte bezalakoa duk emigranteon zorigaitza! Anjel Lertxundi

Respublica Christiana baten **altzotik** sorturiko zibilizazio sekular baten jaiotza beldurgarria. Iñaki Mendiguren

Azkenik, olatu handi baten **altzora** bota zuen jentilak bere burua, eta han ito zen. Pako Aristi

Orduantxe galdu zen gure karraka itsasoaren **altzo** infinituan. ez Mitterrandek, ez haren gerlari ohi lagunek ez dute "25 urte igurikatzerik" izan, ikusteko, II. Mundu Gerlaren ondotik bi zatitan berek banatuak zituzten Alemaniako bi estatuek, egunetik biharrera, autodeterminazio printzipioaren izenean bat egiten zutela eta, Europako Federakuntza jaio nahiaren **altzo** birtualean bat eginik jartzen. Edorta Jimenez

3 (irud/hed izenondoekin)

Zuk erakutsi zenigun, maisu, teoria (fede) merke, erraz, polit eta oro-esplikatzaileekin fidakaitz izaten, haien **altzo** erosoan ez lokartzen. Iñaki Segurola

Batzuk larrugorri daude, beste batzuk gerrialdea oihal batez inguraturik, asko arropa eta guzti sartzen da Gangesen **altzo** errukitsuan. Gotzon Garate

Beste guztiak, ordea, konfiantza osoz eta inolako oztoporik gabe hartzen dituzte beren Erlijioaren **altzo** zabalean, zeren eta, Jainkoaren eskuzabalean eta arduran fidaturik, ez baitira beldur hark nondik eskuratuko dien jatekoa. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erietxea hiru kilometro barru dago, mendi **altzoan**, harresiz inguratua. Itsats zakizkio halako Semearen Ama txit eztiari: izan ere, zeru eta ortziaren zabalak eduki ezin adinako Semea sortu baitzuen, 19 eta, hala ere, bere sabel santuko gelatxoan eraman eta dontzeila- **altzoan** hazi zuen. Joseba Sarrionandia

Ikara kolkoan eta arreta handiz itzuli dira Croixera, nazioarteko izaera humanitarioa duen salbamen- **altzora**. Anjel Lertxundi

5 ***Abrahamen altzo*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Engoitik badago **Abrahamen altzo** bat dohatsuentzat, gaiztoentzat gehenna bat (hau Jerusalemdik hegoaldera dagoen arroa zen, behiala Moloken kultu kanaandarra praktikatu omen zelako, hor baitziren gaiztaginen gorpuak botatzen). ETC-literatura, saiakera

6 ***altzo-txakur***[1] *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Maltatarra Europako **altzo-txakurra** zaharrena izan daiteke. ETC-entziklopedia

Kulero beixen gainean **altzo-txakurren** marrazkiak zituen txabusina lotzen ari nintzaion. ETC-literatura, saiakera

Onartzen du txakurrak pekindar **altzo-txakur** horietakoen tankera duela, baina ez zaio axola. ETC-literatura, saiakera

Tren-geltokitik haren Hampsteadeko egoitza pribatura joan, eta hantxe aurkitu nuen legelari zaharra, jangelan erdi lotan, bakar-bakarrik, bere **altzo-txakurrik** maiteena magalean eta ardo botila ukondoaren ondoan zuela. ETC-literatura, saiakera

7 ***altzo-txakur***[2] *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi) adkor*

Nik ez dut zure neskamea izan nahi, ez dut zure **altzo-txakurra** izan nahi... ETC-zientzia, zuzenbidea

Gavin erraz imajina baitzezakeen txantxen buru zen ahohandiren baten **altzo-txakur** gisa, barrari eutsi ezinik. ETC-literatura, saiakera

Eta izango bada, Hollandek ez dela Merkelen **altzo txakurra** izango agerian uztekoa. ETC-prentsa

Hortik aurrera Perez Rubalcabaren eta PSOEren estatu arrazoiaren **altzo txakurra** izan da, Barcinari zaunka egin, baina hortzak Bilduri erakusteko. ETC-prentsa

Behar baino gehiagotan kateko txakurra izan behar zuena **altzo-txakur** bilakatu da, han eta hemen. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren altzoan (6); **aitaren altzoan eta** (4); **altzoan bezala** (3); **altzoan eta** (9); **altzoan eta bihotzean** (4); **altzoan hartu** (16); **altzoan hartu eta** (4); **altzoan hartu zuen** (4); **altzoan jarri** (6); **altzoan pausatu** (3); **altzoan zeukan** (4); **altzoan zuen** (3); **amaren altzoan** (12); **baten altzoan** (7); **bere altzoan** (32); **eskuak altzoan** (3); **eta altzoan** (10); **eta altzoan jarri** (3); **gozoaren altzoan** (3); **haren altzoan** (7); **haurra altzoan** (3); **jainkoaren altzoan** (3); **nire altzoan** (4); **zeruko aitaren altzoan** (3); **zuen altzoan** (3); **zure altzoan** (3)

---

altzokada *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* altzoaren arabera erabakitako neurria.

Baserrirako oraindik zati bat falta zelarik, bidezidorretik aurreratu, etxe ondoko madari-arbolara igo, eta **altzokada** bat bildu zuen bere lagunentzat. ETC-literatura, saiakera

---

altzolar *izlag/iz* Altzolakoa, Altzolari dagokiona; Altzolako biztanlea.

Kanporaketak eta fusilaketak nahasian ageri dira kroniketan, atertu gabeko jarioan: "Mendaron Mariano Arriaga **altzolarra** fusilatu dute"; "Altzolan Bilboko gudari bat fusilatu dute, 19 urte besterik ez zuena"; "Debatik bost pertsona kanporatu dituzte". Jokin Urain

---

altzoratu, altzora(tu), altzoratzen du *ad* altzora eraman.

Bakarrik geratu zenean, Maddik Maiana **altzoratu** zuen eta sortuz gero abesteari ekin zion lehen aldikoz: buba buba ninano haurra duxu minino... Melodia harilkatzen zerraikan Bettan behiak bazkatzetik sohairotik sukalderatu zenean. Itxaro Borda

---

altzotara *iz* altzoan sartzen den kopurua.

Une hartan hurbildu zitzaien **altzotara** bat arroltze bildurik oilategitik atera zen emazte bat, adintsua hura ere. Elena Touyarou

---

altzukurutar *(corpusean **altzukutar** soilik) izond* Zuberoako Altzukurukoa, Altzukuruko biztanlea.

Eta azken atalean, idazleak ezagutu dituen 16 euskaltzain zendu ditu omentzen, Eppherre **altzukutar** anaiak, Louis Dassance, Etienne Salaberry, Piarres Lafitte, Bitoriano Gandiaga eta bertze. Herria

---

altzukutar ik **altzukurutar**.

---

altzuma ik **altsuma**.

---

alu **1** *iz* emakumearen eta ugaztun emeen sexu organoa, ematutuaren kanpo irekidura osatzen eta inguratzen duena. ik **emakuntza**.

Zure ipurdiko zuloa miaztuko dut, lehen haren **alua** miaztu dudan bezalaxe; isuri egingo zara, eta gauza bera egingo dut nik ere. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zuk egiten diozuna itzuliko dizu bere mihia zure **aluan** sartuz edo klitori gainean erabiliz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gozatzeko modu hori baztertu egin behar du irmoki; **aluaren** ordez eskua, ahoa, titiak edo uzkia eskain ditzala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gizon bat munstroa omen da, eta bizitza galtzea merezi omen du, bere gozamenerako ipurdiko zuloa **alukoa** baino nahiago izateagatik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nire zirrikituak aztertzen zituen, nire klitorisa ikutzen, eta, gainera, **aluan** hondoratzen zen, eta perineoan ibiltzen zitzaidan, eta ni putzutxo bat eginda nengoen. Juan Martin Elexpuru

Eta oraindik eta zoriontsuagoa izateko, bataz eta besteaz balia dadila aldi berean; **alutik** ematen dionaren joaldi lizunek, ipurditik ematen dionaren estasia leher dezatela, eta horrela, gizon bien haziz blai eginik, neskak berea isur dezala, plazerez hiltzen den bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez zen marikoi erabatekoa, kontu bakarra zen aluek nazka ematen ziotela, ez zuen **alu** batean zakila sartu nahi, ez zuen miazkatu nahi, ez zuen ukitu nahi, ezta begien bistan ikusi ere. Karlos Zabala

Baina **alu** heze baten usainak lelotu egiten gaitu askotan, eta garesti ordaindu nituen nik Mirenek emandako une atseginak, arraioa! Migel Angel Mintegi

Hura esan eta ezin izan nuen hizketan jarraitu, ene buztana Loreren **alu** beroan barrena baitzihoan. Aitor Arana

Pitilia sartzen niokan gogor, kolpe bakarraz, busti-bustirik gordean atxikitzen zian **alu** erraldoian. Itxaro Borda

2 (hitz elkartuetan)

Donatienen atsegin eta fantasia nagusiak miazketa, uzki-koitoa, **alu**-koitoa eta masturbazioa dira, hau guztia taldean, eta exhibizionismoz eta zokomiraz ongi apailatuta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eugeni, noiz edo noiz **alu** barruan eta ezpainetan sastatuz, eta baita sabelean eta mendian ere: Lasai, ama, hau ez da ezer; jostorratza probatzeko da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Doltoren arabera, utero inguruko orgasmoa besteekin nahastu egiten da, batez ere **alu**-baginetakoarekin, emakumeak ez duelako modu kontzientean sentitzen. Luis Elberdin

3 *iz/izond* esanahi zehatik gabeko hitz gutxiesgarria edo iraingarria.

Ederki izorratu ditek **alu** hori! Koldo Izagirre

Nahiago bai, Mohammed **alu** hori balitz traidore bakarra. Harkaitz Cano

Zer dirutzak ez zituen irabaziko **alu** horrek! Antton Olano

Horrako horrek (eta berriro Lulu seinalatu zuen) esan du **alu** galanta naizela ni, eta, arraioak ez baitu!, gibela jango diot horrelakorik esaten duenari. Josu Zabaleta

Alu gogorra izaten ahal zara adin horretan. Aingeru Epaltza

- **Alu** zerria! -oihukatzen nuen neure artean-. Txillardegi

-Charly, **alu** handi hori! Aingeru Epaltza

" **Alu** zikin hau etxearen jabea dela ematen dik, egiatan gigolo bat besterik ez bada ere", pentsatu nuen. Fernando Rey

Zaratiegi harro hari ez zitzaion oharkabean pasa, eta orratz harekintxe ari zitzaidan ziztaka, **alu** halakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Espabila hadi orain, **alu** alaena...! Pako Aristi

Bulegoan nagusia genuen **alu** samarra. Harkaitz Cano

Hazi ahala, atariko guztiei egurra ematen ikusi ninan **alu** arraio hura. Anton Garikano

Hona hemen zuen hitzaldi **aluen** ondorioak! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nik neure artean: zaldar ditxosozko hori igo edo jaistak, itsusi amorratua izango haiz eta betiere, ergel **alu** hori. Xabier Olarra

Ostia-milikatzaile **alu** horiek gure berri baditek. Aingeru Epaltza

Italiar **alu** horrek metrailadore bat gordetzen omen zian etxean! Alberto Ladron Arana

Bazuen nerbioetako gaitz **alu** bat, gorputza poliki-poliki egoera mixerableenera eramaten duen horietakoa. Jon Alonso

Baduk gauza bat hire alde: abuztuan hiri **alu** honetan deus gertatzen ez denez, zorioneko hilketa honi zuku guztia atera behar zioagu. Aingeru Epaltza

Santa horrek egin zezakeen mirariren bat malda **alu** hau igotzeko! Jon Maia

-Baretuko ahal da haize **alu** hau! -esan zuen Samuelek ia beretzat. Anjel Lertxundi

Hegazkin horietariko aulki **alu** batean hamabi orenez segidan mugitu gabe egon denak, aurrehistoriaren basakeriaz dena badaki! Ramuntxo Etxeberri

Nola sentitu ezer, ez flashik eta ez flashondorik, nolatan aluzinatu deus ez dagoen (baina, aluzinatuarentzat, "dena dagoen") bazter edo ezleku **alu** haietan? Iñaki Segurola

Goi mailako ofiziala izanik eta SSetako morroi haien harrokeria ezagututa, ez zen arraroa izanen aldizkari **alu** haietan agertzeko irrikan egotea. Alberto Ladron Arana

Entzuten duan musika **alu** horrek dik errua, zainak airean jartzen zizkidak, txilio eta orro horiekin. Alberto Ladron Arana

Nahikoa zaio seme **alu** horrekin. Pako Aristi

Txikitako irakasle jakin bat izan nuen inspirazio-iturri, Txanpi ezizeneko kakanarru **alu** bat,Oskar, Oskar zuen izena komunista **alu** hark. Xabier Mendiguren Elizegi

Oilo **alu** batek kakaratxo bat egin zuen. Jon Maia

Nire onetik irtenda nengoen adar-jotzetzat nuen Angeloren jokabide **alu** harengatik. Anjel Lertxundi

Sallyrekiko zita **alu** hura neukan, ordea. Bernardo Atxaga

Gaur, eguneroko martxa **alu** horri ekiten diot berriro. Eskarne Mujika

Mito **alu** ustel zikin bat! Ramuntxo Etxeberri

Medikuek esan berri didate gaitz **alu** batek jan didala barrena, eta denbora gutxiko bizia geratzen zaidala. Xabier Mendiguren Elizegi

Hotz **alu** hau gero eta gordinagoa duk", esan dit, kristalezko hats batez. Anjel Lertxundi

"Hotz **alu** hau gero eta gordinagoa duk", esan dit, kristalezko hats batez. Anjel Lertxundi

Dinamita kartutxoak ebasten ditut, amets egiten dut Victor Chavarriren jauregia suak hartuta ikusten dudala, kaka **alu** bat egiten diot abade eta lagizartzale guztien Bizkaiari. Koldo Izagirre

Zupa nazazu, jainko **alua**! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alu bat (13); **alu batek** (7); **alu eta** (3); **alu halakoa** (3); **alu hari** (4); **alu hark** (10); **alu hau** (13); **alu honek** (3); **alu hori** (25); **alu horiek** (12); **alu horrek** (17); **alu horri** (5); **alu hura** (5); **alu zikina** (6); **alua galanta** (3); **alua jaten** (3); **aluak eta** (4); **aluan eta** (3); **du alu** (5); **eta alua** (16); **eta aluak** (3); **eta aluan** (5); **irakasle alu** (5); **irakasle alu bat** (3); **jainko alua** (6); **loro alu** (3); **nire alua** (5); **zakila aluan** (3)

---

alualde *iz* aluaren aldea.

Alualdea edo titiak erauzi izan balizkiote, kasurako, aiseago egonen ginateke zerbaiten menturan. Aingeru Epaltza

---

alubial **1** *izond* jalkinena, jalkinei dagokiena.

Oso noizean behin, neskameak liburuen hautsa garbitzea beharrezkoa zelako aldarrikapen solemnea egiten zion, batez ere goiko apalategian, non oso bakanetan baizik kontsultatzen ez ziren liburuak lerrokatzen baitziren, mendeen metatzearen gordetegi **alubiala** irudi, hauts beltza, hausterrea bezalakoa, nondik datorren jakiterik ez dago, tabakotik ezin daiteke izan, zuzentzaileak aspaldi utzi baitzion erretzeari, denboraren hautsa da, eta horrekin dena esana dago. Jon Alonso

2 ***ordoki alubial*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Ordoki alubialaren maila baino gorago eraiki zuten Mohenjo-Daroko gotorleku-muinoa, eta adreilu errez egindako ur-hesi batez inguratuta zegoen -13 bat metro garai zen hesia-. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ibilgu artifizialak, **ordoki alubialaren** bi alboetan kokatutako zati zuzeneko lerroak dira, eta ez dute ibaiaren emari osoa bideratzen, baizik eta ureztatzerako eta uholdeak ekidin edo mugatzeko. ETC-entziklopedia

---

alubioi **1** *iz pl* urak utzitako hondakinak. ik **apakin**.

-1979an, Valdepeñasen, itxurabako ekaitz eta erauntsiak, luizi eta **alubioi**, etxe mordo bat bota eta hondatu zituen, eta, okerrena, 23 lagun eraman zituela. Pello Zabala

Anteok **alubioiaren** seinaleak erakutsi zizkidan, bi metro bai gora malda lautik. Juan Garzia

2 ***alubioi lautada*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Trapezioaren oinarri laua **alubioi-lautada** osatzen duten sedimentuak etengabe metatzearen ondorioz sortzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kaukasoko zortzi ibai handik isurtzen dituzte urak Erdialdeko Kura-Aras lurretan, zehazki, kostaldean zehar dauden **alubioi lautadetara** eta delta baxuetara isurtzen dituzte

urak. ETC-entziklopedia

Nagusiki, oso malda txikiko **alubioi-lautadetan** sortzen da; sedimentuak meandroaren ertz ganbilean metatzen dira, eta ertz ahurrean, indar zentrifugoaren ondorioz, higadura eta ibaiertzaren atzeratzea dira nagusi. ETC-entziklopedia

3 ***alubioi ordoki*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

1963ko martxoan izan zuen erupzioak 1.500 lagun hil eta milaka etxerik gabe utzi zituen. Hegoaldean **alubioi ordokiak** nagusi dira. ETC-entziklopedia

---

alubita *(orobat **aluita**) izond* alu *irain* hitzaren leungarria. ik **alu 3**.

Auskalo non eta zertan zebilen orain **alubita** hura. Harkaitz Cano

Bera santa izan, hura, **alubita** zikin hura!", "Noskixeago ere, gu ez omen gara inor hari kargu hartzeko". Patziku Perurena

Bihurriak eta **alubitak** biak. Berria - Kirola

---

alublai *izond adkor* alua blai duena.

Hator, hator, putatzar **alublai** hori, hesteak libratzen lagunduko dinat-eta! Anjel Lertxundi

---

aluditu, aludi(tu), aluditzen du *ad* norbaiti edo zerbaiti buruz hitz egin, haiek espreski izendatu gabe.

Oso frantsesak dira denbora guztian erabiltzen diren planteamenduak, erreferentzia kulturalak zein sozialak, **aluditzen** diren arazoak, erakusten diren esperantzak eta desesperantzak berak. Joxe Azurmendi

Gauza askori **aluditzen** zaio (Easoko bizitza urbanoaren erakarmena, tabernekin etab.; industriagintza eta zientzia modu berriak: Orixerena edo bezalaxe, Barojaren Euskal Herri jatorra ere baserritarra da, hiria "mehatxua" da hain zuzen). Joxe Azurmendi

G. Morán-ek oso fin seinalatu du kasuaren solemnitatea: "En el discurso de Berlín hay también algo de "Discurso al Pueblo Alemán"", Fichte-ri **aludituz**. Joxe Azurmendi

---

alukeria **1** *iz adkor* egintza edo ekintza gaitzesgarria.

-Zer **alukeria** da hau? Nondik atera duk **alukeria** hori? Aingeru Epaltza

-Nik Rufinori karino handia neutsan eta berak bere bai niri, baina, ez dakit zelan esan, **alukeria** egin eustan Juan Garziak bere ipuin batean Asisko San Frantziskori eragindako **alukeria** etorri zaizu, ordea, berehala: eta elurra egin eta nire pieza bikaina ezabatzen badu? Xabier Amuriza

Pertsona aluaren egintza **alukeria** da, jakina. Iñaki Segurola

Alukeria iruditzen zaidak poetarena egiten ibiltzea. Iñaki Iñurrieta

Titietaraino naukak hire **alukeriekin**. Patxi Iturritegi

Ez hasi orain **alukeriatan**! Koldo Izagirre

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eta **alukeria** galanta bada, ba sekulako lasaitua ematen dizu jakiteak beste batzuek ere aurrez esan dituztela halakoak. Iñaki Iñurrieta

-Alukeria galanta bota duk -Gabinek. Iñaki Iñurrieta

Halaberean, sekulako **alukeria** izaten da niretzat auto-garbigailuetan, ohiko ikastun lohihartzekodunaren ordez, itsulapikoen gisako arrailaz hornituriko aparatua aurkitzea: sartzen diodan dirua ez da inoiz mangerari ur tantarik aterarazteko on. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alukeria da** (4); **alukeria galanta** (3)

---

alumetaire *iz*

Alumetairea: txabola batean pospoloak egin eta saltzen zebilena: beti kobazuloetan lo, beti ezkutuan zebilena -debekatuta baitzegoen, Estatuak zeukan-eta pospoloen monopolioa. Pablo Sastre

---

alumina *(corpusean ez dago; ETCn **143** agerraldi) iz* aluminio oxidoa.

Hortik eratorri dira geroko material sintetikoak, hala nola polietilenoa edo **alumina**. ETC-literatura, saiakera

Rusal konpainia Sual etxeko lehiakideaz jabetuko da, eta Suitzako Glencore taldearen **alumina** baliabideak (aluminioa ekoizteko lehengaia da) erosiko ditu 23.400 milioi euroren truke. ETC-prentsa

Makarroia egiteko teknika aldatu, eta, zuringoaren ordez, zerri odol freskoa gehitzen diote -biek dute **alumina** -. ETC-prentsa

Aplikazio-eremuaren mailan, **alumina** aktibatuak (AA), sosa kaustikoez, azido klorhidrikoez edo biez aurretratauturik, artsenikoa eraztzeko ahalmen handiena zuela egiaztatu zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alumina hidratatuzko euskarri mehe-mehe bat adsorbatuta eratzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kobrea, zilarra, urrea eta **alumina** material diamagnetikoak dira giro-tenperaturan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nahasketa 2 orduz irabiatu eta ondoren 100ºC-tan eta hutsean lehortu da 24 orduz metanol guztia ebaporatu arte. rGO/KOH aitzindaria **alumina** bote batean, eta bote hau **alumina** tutu batean sartu ondoren, argon fluxuan (130 ml min-1) 100ºC-tan berotu da 15 minututan zehar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kare hidraulikoen eta aireko kareen arteko ezberdintasuna zera da, lehenengoek silize- eta **alumina** -ehuneko nahiko handia dutela, besteen aldean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alumina aluminio Oxido oxidoa da (Al 2 O 3). Silizio dioxido Silizea eta **alumina** dira buztin eta esmalteen osagai garrantzitsuenak. ETC-entziklopedia

Alumina ugari du eta Titanio gutxiago toleitikoek baino. ETC-entziklopedia

Buztin-lurra (**alumina** silikatoa), aglutinatzaile gisa erabiltzen dutena. ETC-entziklopedia

---

aluminio *(orobat **aluminium** g.er. eta **aluminion** g.er.)* **1** *iz* metal zurixka, arina eta malgua, 660° C-tan urtzen dena, burdinaren ondoren metalik erabiliena *(Al; at. z. 13)*.

Altzairu forjatua, **aluminioa**, kobrea, nikela, burdina forjatua. Lopez de Arana

Aluminioa esan eta hojalata sartuko ziek, xaguzar horrek. Pablo Sastre

Aluminioa egiteko bauxita behar duzu, eta **aluminioa** behar duzu hegazkinak egiteko, eta **aluminioa** garraiatzeko ontziak behar dituzu. Edorta Jimenez

Aluminioaren gainera zaldi hautsa botatzen zuten, inoizka koka nahastuz, kixkeroarekin azpitik berotu eta ateratzen zuen kea paperezko hodi baten bidez barneratzen zuten. Pako Aristi

Baso-guardak zekarrena garai batean haga eta larruz egindakoak baino arinago eta gogorragoa zen, **aluminioz** eta zuntz sintetikoz egindako lera baitzekarren. Joxemari Urteaga

Irakasle gela pixka bat aurrerago dago; arrainontzi baten antzekoa da, **aluminiozko** egitura batek korridore zabalari lapurtutako espazioa. Iban Zaldua

Maria bainutarako **aluminiozko** eltzetxo bat egokitu nuen. Juan Garzia

Pastelak hantxe segitzen zuen, azpikoz gora **aluminiozko** ontzia. Koro Navarro

Arma nuklearrak egin ahal izateko **aluminiozko** hodiak erosten ere saiatu da. Berria - Mundua

Ontzi ttipi bakar batzuk kaian ongi lerrokatuak, bertze batzuk ondoan den **aluminiozko** aterpean gordeak. Aurelia Arkotxa

Aluminiozko mahai baten atzean zegoen kontserjea, irratia entzuten. Koldo Izagirre

Pubean txokolatinak erosi eta **aluminiozko** paperarekin joaten ziren komunera. Pako Aristi

Tenore horretan automatak gara, altzairuzko panpinak, burdinazko beso eta zangoak, **aluminiozko** bihotzak taupadaka ari zaizkigula. Itxaro Borda

Axolatürik nüzü, bai, erran nahi beit da bortüalat joan nizalarik ez düdala deus-ere, **aluminionezko** paperik edo horietarik ütziko. Menane Oxandabaratz

Aluminiozkoa marfil kolorez margotua. Ramon Saizarbitoria

Kanpoaldeko egurrezko leihoak egiten dituzte, baina baita **aluminiozkoak** eta biak nahastuta ere. Berria - Kirola

Hemezortzi bat duro **aluminio** kiloko, hura baitzen txatarra-meta erraldoietan errazen aurkitzen zena. Harkaitz Cano

Axolatürik nüzü, bai, erran nahi beit da bortüalat joan nizalarik ez düdala deus-ere, **aluminionezko** paperik edo horietarik ütziko. Menane Oxandabaratz

Itzuli zelarik, 'hôtesse' delakoak gosarien eskaintzen ari ziren eta **aluminiumezko** platerak pasarazten Nina eta Perurenari. Ramuntxo Etxeberri

2 (izenondoekin)

Sainte-Claire Deville-k **aluminio** metalikoa estreinakoz nola bakartu zen deskribatzen. Juan Garzia

Aluminio leunezko sukalde altzariek sarbidearen parte bat hartzen zuten. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

Karbono zuntzeko plastikoen erabilerak, esaterako, **aluminio** aleazio onenaren aldean, tona bateko pisu murrizketa ahalbidetu du A380an. Berria - Harian

Hainbat suhiltzaile eta guardia zibil **aluminio** fosfuroarekin toxikatu dira Tuteran. Berria - Euskal Herria

Larruzko tapizerian ezer ez jausteko kontuz jan ditu tailarinak **aluminio** paperezko ontzian, tarteka-marteka jatetxerantz jasoz begirada. Urtzi Urrutikoeetxea

Saltokiko neska arrosa gorrien zurtoinak **aluminio**-paperean biltzen ari zen bitartean, Rosiek Jakeri zeharretik begiratu zion. Lopez de Arana

Hatz bat sartzen saiatu nintzen, **aluminio**-orria pixka bat altxatuta. Juan Kruz Igerabide

Idoia bainugelatik irten zen, bizkor-bizkor jantzi, biok beraren ama agurtu, eta **aluminio**-orriz estalitako erretilu bat hartu zuen, abiatu aurretik. Juan Kruz Igerabide

Mamu hiria izango da, inoiz benetako auzoa izandakoa, etxeen oinarriak altzairuzkoak, zorua eta barruko hormak zurezkoak izango dira, baina isolatzaile termikoz eta **aluminio** xaflez babestuak. Joseba Sarrionandia

Portuan pilatutako txatarra meta eskergen baitan, brontzea, kobrea edo **aluminio** pieza ttikiak bilatu eta lapurtu ondoren badia inguruan merkezurrean ziharduten txatarreriatara saltzen zituztelako. Harkaitz Cano

Ameriketako Estatu Batuek hegazkin konpainien salbaziorako edo bere altzairu eta **aluminio** industriak babestuko dituen kartelak sortzeko milaka milioi dolarretako ekarpenak egiteko jarrerak agerian utzi du merkatu askearen ideologia ez dela zaharkituriko ongizate korporatiboaren mozorro xume bat. Iñaki Heras

4 irud/hed

Badirudi Rielle eta Willibrord karriketako egoitza gorrilunak **aluminiozko** zeruan aizturrekin pikatuak direla. Aurelia Arkotxa

Aluminiozko begiak zituen eta irriño goxoa. Gotzon Garate

5 ***aluminio hidroxido***

Hasieran **aluminio hidroxidoa** erabiltzen zuten substantziaren laguntzaile gisa. Berria - Gaiak

6 ***aluminio kloruro*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Aluminio kloruroa halogenoari lotuta duen isomero batekin orekan dago konplexu hori. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izaera inorganikoa izan dezakete, hala nola zenbait metal astunen gatzak edo **aluminio kloruro** modukoak, baina izaera organikoko atzeratzaileak ere erabilgarriak dira, azukreak esate baterako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, atmosferaren %1 burdin (III) kloruroa da. Beste osagai posible bat burdin (III) sulfatoa, **aluminio kloruro** eta anhidrido fosforikoa dira. ETC-entziklopedia

Aluminio kloruro anhidridoa: katalizatzaile eran industria kimiko eta petrokimikoan. ETC-entziklopedia

7 ***aluminio oxido*** *(corpusean ez dago; ETCn **64** agerraldi)*

Alumina **aluminio oxidoa** da (Al 2 O 3). Silizea eta alumina dira buztin eta esmalteen osagai garrantzitsuenak. ETC-entziklopedia

Berez, kristal forma duen **aluminio oxidoa** da zafiroa, eta berdin artifizialki ekoitzitako zafiro sintetikoa. ETC-prentsa

Bai, oso ohikoak diren materialez ari gara, eta horiekin erraz lan egin daiteke: **aluminio oxidoa**, adibidez. ETC-prentsa

Erabiltzen diren garraiatzaileen artean, hauek daude: eraldatutako zelulosak, karbono aktibatua, igeltsu-mineralak, **aluminio oxidoa** eta beira aleak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ingeniaritzako zeramikak konposatu puruak edo ia-puruak dira **aluminio oxidoa** (Al2O3), silizio karburoa (SiC) eta silizio nitruroa (Si3N4) bezala, gaur egun gas-turbinetan eta zirkuitu integratuen txipetan aplikatzen ari dira era esperimentalean. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***aluminio paper***

Larruzko tapizerian ezer ez jausteko kontuz jan ditu tailarinak **aluminio paperezko** ontzian, tarteka-marteka jatetxerantz jasoz begirada. Urtzi Urrutikoeetxea

Erretzaileen gunean **aluminio paperezko** hautsontziak daude. Berria - Harian

Saltokiko neska arrosa gorrien zurtoinak **aluminio-paperean** biltzen ari zen bitartean, Rosiek Jakeri zeharretik begiratu zion. Lopez de Arana

9 ***aluminio silikato*** *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Aluminio silikato batzuk, honako mineral hauek dira: feldespatoa, kloritak, buztina, granitoa, puzolarria... ETC-entziklopedia

Aluminiozko eta **aluminio silikatozko** mineral ugariren alterazioaren ondorioz sortzen da, meteorizazio biziko baldintzetan. ETC-prentsa

Buztina da batez ere **aluminio silikatoz** osaturiko lurra, uretan bustita oso bigun eta malgua, eta ontzi, teila, adreilugintzan erabilia. ETC-literatura, saiakera

Buztinek **aluminio silikato** hidratatuak (Al2O3 ? SiO2 ? H2O) dituzte gehienbat, eta TiO2, Fe2O3, MgO, CaO, Na2O eta K2O moduko oxido-kantitate txikiekin nahastuak egon daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 ***aluminiozko paper***

Paper bakoei dagokienez, Peredak magrebtarren kasua aipatu zuen, horietarik askok heroina edo kokaina txinotan erretzen badituzte ere droga **aluminiozko paperetan** erre eta kea arnastuz, ez direlako usualki osasun eta gizarte zerbitzuetara hurbildu ere egiten. Berria - Euskal Herria

Pubean txokolatinak erosi eta **aluminiozko paperarekin** joaten ziren komunera. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta aluminio (4); **eta aluminioa** (5); **eta aluminiozko** (9)

---

aluminion ik **aluminio**.

---

aluminita *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* luminio sulfato hidratatua.

Aluminita mineral bat da. ETC-entziklopedia

Mangazeita sulfato mineralak sulfato motako minerala da eta **aluminita** taldearen kidea da. ETC-entziklopedia

Meta-**aluminita** sulfato mineralak sulfato motako minerala da. ETC-entziklopedia

---

aluminium ik **aluminio**.

---

alunbre *iz* aluminio-potasio sulfato bikoitza.

Lurraren barruan **alunbrearen**, betunaren edo sufrearen eraginez sua pizten denean, beroarekin berotu egiten da gainean dagoen lurra. Santiago Iruretagoiena

Eskualde menditsu horren azpian lur beroak eta iturri ugari aurkitzen dira; eta horrelakorik ez litzateke sortuko barru-barruan ez balira su handi gartsuak izango, sufrez edo **alunbrez** edo betunez egindakoak. Santiago Iruretagoiena

Baliteke kapitain hark ordurako gehiago jakitea, dena beste modu batean ikustea, eta bere bi begiek bi **alunbre** puska ziruditen. Fernando Rey

Non aurkitu mundu zibilizatuan, egun, bizarra egin eta gero aurpegian **alunbre** -harria emango lukeen gizona, hura larrumintzaren aurkako basatikeria zen. Jon Alonso

---

aluratu, alura(tu), aluratzen da/du *ad* alura gerturatu; alura eraman.

Saint-Ange, mesedez Agustinek atzetik eman diezazula nire aurrean, neba **aluratzen** zaizun bitartean, eta ipurdiak ikusi nahi ditut, batez ere: ikuskizun horrek akabatu egingo nau. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Buelta hartu zuen eta atzetik **aluratu** zidan, altan dagoen txakurreme bati bezala, eta larrua amorruz jotzen hasi zitzaidan, hurakan baten indarraz. Juan Martin Elexpuru

Ez ninan zazpi orenez, seiehun eta hogeita zortzi zakil eta erdi **aluratu** zituen Houston anderearen bidean lerratzeko gutiziarik! Itxaro Borda

---

alusio *iz* norbait edo zerbait aipatzea, espreski izendatu gabe.

Esaldi bat dago tartean, Espainiari eta nekazari espainolari **alusio** bat izan daitekeena. Joxe Azurmendi

Krudela, zeren **alusio** bat baitzeraman bere baitan, ziur aski faltsua eta nolanahi ere erruki eskasekoa, Barbaricôren errezetategiak emakumeari eskura jartzen zion jenero jakin bati buruz. Juan Garzia

Heriotzak (edo haren **alusioak**) zehatz eta patetiko bilakatzen ditu gizonak. Juan Garzia

Bere lankideren batzuek inondik inora zilegi ez diren **alusioak** ikusi nahi izan zituzten pasarte horretan. Joxean Agirre

Gorago ere topo egin dugu juduen **alusioarekin**. Joxe Azurmendi

Nietzscheri **alusio** maliziatia berriro. Joxe Azurmendi

Gezurrezko **alusio** hori egin orduko, ordea, ama, ordu arte dena lasai entzuten baitzuen, etxeko zurezko atalasean eserita, bat-batean salto batez zutitu zen. Matías Múgica

Aurreko kopla **alusioz** baino ez dugu "txarria", hitzek irudimena kitzikatu besterik ez dute egiten, erotismoa entzulearen konplizitatean dago oinarritua. Koldo Izagirre

Lau bertsolerrotan hiru **alusio** erudiziozko pilatzeko. Juan Garzia

Hizkuntza guztietan Deabruari hainbat eta hainbat deikera ematen zaizkio, **alusiozkoak** eta eufemistikoak. Juan Garzia

---

alutxo *iz adkor* alua.

Plazer istant zikoitz eta minimo hori edozein **alutxotan** abstraitu ahal izaterainoko hipokrita zela sinetsarazi ote zion bere buruari, kariñoa ukazioaren eta miseriaren babeslekuari ematen zaion beste izena zela sinesten ote zuen? Harkaitz Cano

Farorantz-eko faroa zakila da, diote; sudurreko puntutxo beltzak, zakiltxoak; galtzerdia, alua; Ramsay andrea farozainaren semearentzat josten ari den galtzerdiko zulotxoak, **alutxoak**. Markos Zapiain

Nire neskak harrituta begiratu zidan (ni ez naiz gure jolasaldietan antzerkiak asmatzen dituen horietakoa), eta bere eskua nire sexuraino jaitsi eta ferekatzen hasi zitzaidan, nik bere **alutxo** maitea gogotsu miazten eta mutilaren zakilkadak sentitzen nituen bitartean. Juan Martin Elexpuru

---

alutzar *izond adkor* norbaitez mintzatuz, alu handia.

Horixe erran dik **alutzar** horrek? Aingeru Epaltza

---

aluxka *izond adkor* alua.

Lanpetuegi zegoan Sanjose **aluxka** hori eskolatzen. Aingeru Epaltza

---

aluzikin *izond adkor* alua zikina duena.

Lezionea behingoagatik ikasi beharra zitean **aluzikin** horiek, Anton. Hasier Etxeberria

---

aluzinagarri ik **haluzinagarri**.

---

aluzinante ik **haluzinante**.

---

aluzinatu ik **haluzinatu**.

---

aluzinazio ik **haluzinazio**.

---

alzaziano ik **altsaziar**.

---

alzaziar ik **altsaziar**.

---

alzheimer **1** *iz* buruko eritasuna, zahartzaroan agertzen dena, burmuinaren atrofia progresiboa eta dementzia ezaugarri dituena.

Eritasun minbera dudarik gabe **Alzheimer** izendatua den hori. Herria

Alzheimer gaitzak jotako hemengo batek Miel deitzen dit agurtzen dudan aldiro, eta keinu egiten du esku ahurraz airean, euliren bat harrapatu nahiko balu bezala. Anjel Lertxundi

Bizitza osoa suizidioaren inguruan gogoetan aritu ondoren, **alzheimer** gaitzak harrapatu zuen Cioran. Harkaitz Cano

Medikuek zenbait urte zuela **alzheimer** eritasuna kausitu zioten; halaz etxea bizidunez husten zenean, merkatura edo mezetara joateko adibidez, lo-gela zerratutik eskapatzen zen, baratzeko pikuaren puntaren puntara hupatzeko. Itxaro Borda

Alzheimer eritasunagatik, bere zuhaitzetik beheratu ondoan horretaz baizik ez zen mintzatzen: hitzak eskas zeuzkan gainerako bizipenen ahoskatzeko. Itxaro Borda

Eta zehatzago gogoratzen zaio etxetik irteeran, **alzheimer** puntturen bat duen xaharrari: Aitona, agorrilan bidez bahoa, eramazak erekin euritakoa. Pello Zabala

Oraiko martxan, izigarriki emendatuko da **Alzheimerren** eritasuna ondoko hamarkadetan. Herria

Gazteagoen artean hizpide hori atera genuen batean, norbaitek **Alzheimerraren** gaitzera ekarri zuen elkarrizketa. Andoni Egaña

Mihi gaiztoek diotenez, **alzheimerraren** ondorioz ahaztu egin zituen suizidatzeko betidanik izan zituen asmoak, eta zahartzaroaren ondorioz hil zen, 1995ean, Parisen. Harkaitz Cano

Alzheimerra zuen, eta lo zegoen. Lander Garro

Konponduta gaude halako **Alzheimerra** duten politikariekin, Patri. Hasier Etxeberria

Ez zuen, ez, **Alzheimer** delako "aleman horren" zantzu handirik hark, ez zuenez...! Pello Zabala

· Ezagutzen ditugu jada familia batzuk eritasun autosomiko azpiratzaileek latz astintzen dituztenak: **Alzheimer**-en gaitzak, koloneko minbiziak edo bularreko minbiziak, besteak beste. Juan Garzia

Asaldatu egiten naute noizbehinka **Alzheimerren** gaixotasunaz prentsak eskaintzen dituen albisteek. Iban Zaldua

2 ***Alzheimerren gaixotasun***

Asaldatu egiten naute noizbehinka **Alzheimerren gaixotasunaz** prentsak eskaintzen dituen albisteek. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alois alzheimer (3); **alzheimer eritasuna** (4); **alzheimer eritasunak** (4); **alzheimer gaitza** (3); **alzheimer gaitzak** (4); **alzheimerra duten** (4); **alzheimerra dutenen** (3); **alzheimerra geratzeko** (3); **alzheimerra izateko** (5); **alzheimerrak jota** (3); **alzheimerrak jotako** (3); **alzheimerrari aurre** (3); **alzheimerren eritasuna** (5); **alzheimerren eta** (3); **alzheimerren eta parkinsonen** (3); **alzheimerren gaitza** (15); **alzheimerren gaitzaren** (9); **da alzheimerren** (3); **dira alzheimerren** (3); **eta alzheimer** (4); **eta alzheimerren** (5)

---

alzipres ik **altzifre**.

---

ama **1** *iz* seme edo alaba bat edo gehiago dituen emakumea; ume bat edo gehiago izan dituen animalia emea; iturburua, jatorria.

Ez bitez hire **amaren** erreguak alferrik gal, Hamlet. Juan Garzia

Gure **amak**, berriz, "janak jankizunik ez" esaten zuen, norbait, desorduetan gehiegi janda, otorduan jangartsu azaltzen zenean. Joxerra Garzia

Hasieran telefonoa eseki gabe utziko du, baina oso deserosoa egingo zaio, egun horietan **ama** ospitalean zaintzen dagoen arrebaren deien zain egongo delako. Iban Zaldua

Bukatu da gerra, mututu dira turutak, eta **amen**, andregaien eta alarguntsen aieneen eztandak hartu du ordu arteko arrandi militarren lekua. Anjel Lertxundi

Gogorrena 1961a izan zen, **ama** gosez hil baitzitzaien: seme-alabei urki azaletan, aihen zukuz idazten erakutsi zien emakumea. Pablo Sastre

Atzera begiratu dut, sorbalda gainetik, barkamen itxaropenez-edo, **ama** atzetik lasterka etorriko zaidan eta etxera eramango nauen itxaropenez. Mirentxu Larrañaga

Maddiren **amak** beste inork ez du ezagutzen alabaren sekretua. Martin Anso

Bestea, zergatik den etxea aitarena eta ez **amarena** galdetzen duenari arrazoi ematen diona. Iñigo Aranbarri

Geroztik, **ama** beltzez janzten hasi zen eta horixe da gogoratzen ahal dudan nobedade bakarra. Alberto Ladron Arana

Zazpi seme-alaba eman zizkion Andreak, bost mutil eta bi neska, aitaren eitekoak mutilak, **amaren** antzekoak neskak. Felipe Juaristi

Krapotkin printzeak erabakia zeukan lehengo jabearen langile guztiak bidaltzea; **ama** ikusi orduko, ordea, denak bidali zituen aita ezik. Matías Múgica

Senditzen nuen amatxik eta **amak** biziki maite nindutela. Menane Oxandabaratz

Heziketa erlijiosoa **amaren** ardura izan zen, eta Kristoren izenari errespetuan eta benerazioan hazi zuen semea. Imanol Unzurrunzaga

Eta horixe, **ama** haserretu egiten da -zahartuta dagoelako ziurrenik, baina ez zaio kontuan zertan hartu, ez oso kontuan behintzat-. Unai Elorriaga

Bainugelara urduri sartu eta are urduriago irten zen handik, **amak** egun seinalatu hartarako erositako pijamaz jantzita. Josetxo Azkona

Amak familian sendagile bat nahi zuela eta, hemen nago orain ginekologo bihurturik. Hasier Etxeberria

-Ipuina irakurri, **ama**! Pako Aristi

Bitxia da nola berak eta haren **amak**, hirikumeak eta intelektualak eurak, garai zaharretako izaki hau egin duten, kolono sendo eta gazte hau. Oskar Arana

Amaren alboan eseri zelarik, kementsuago ekin zion orrazketari. Patxi Zubizarreta

Ama izutuko zuen ezer ez idaztea izan da nik idazte lan honetan neure buruari ezarri diodan muga bakarra. Pako Aristi

-Eutsi, Joantxo, eutsi -xuxurlatzen zidan **amak**, sorbaldetatik estu helduta. Juan Kruz Igerabide

Amari aipatu dio gaur goizean, oker ez banabil, telefonoz berba egin dutenean. Urtzi Urrutikoetxea

Amaren heriotzak hutsune handi bat utzi zion bihotzean, eta tristurarako joera handi bat. Josu Zabaleta

Teresa Blascorekin bi alaba izan zituen, bietako bat, Julia, Alessandro Manzoniren **ama** izango da. Juan Martin Elexpuru

Senidetasuna da kasu honetan indar gutxieneko arrazoia: gure amonaren lehengusua izan zen hura, bien **amak** ahizpak, baina nik ez nuen horren berririk. Xabier Mendiguren Elizegi

Amarengandik aldenduta bizi izan zen Donatien lau urte bete zituenez geroztik; apaiz libertino batekin igaro zuen bere haurtzaroa, moral lasaiko emakumez inguratuta, bere aitaren ibileren eraginpean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez dago **amarik**, New Yorken, Lilen edo Badajozen, bere semearen heriotza absurdoa onartuko duenik. Hasier Etxeberria

Umea lotan zegoen, eta **ama** inoiz baino isilago. Unai Elorriaga

-Dibertigarria izango da zure **amari** doluminak ematea, Francis. Harkaitz Cano

Amak nire atzerapenaz galdetuko ote zidan beldur nintzen. Joseba Urteaga

Ama hil nahi lukeen presakumea. Joxerra Garzia

Gurasoak beti lanean baitzeuden, osabarekin hazi nintzela esan zitekeen: hark zaindu ninduen txiki-txikitan, **amak** berak baino sarriago aldatu zidan pixoihala eta hobeto zekien ni engainatzen jaten emateko orduan. Aitor Arana

Nahi badu, udak Kanadan eman ditzake, **amarekin**, **amak** eta biek. Xabier Olarra

Haurrak bere burua ahul sentitzen du munduan; babesa amarenean bilatzen du hasiera batean, baina berehala aitak ordezten du **ama**. Markos Zapiain

Sortzeak ekarri digu euskara, **amaren** altzoan xurgatu duguna eta lehen lehenik etxeko sukaldean mintzatu aitamekin, anai arrebekin, aitatxi amatxirekin, gurekin bihotz bat egiten zuten guziekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Izan ere -bere **amari** begiratu zion Leirek-, ez da txantxa zigarroek hauspoetan egin dezaketena, e? Aitor Arana

Ama eskaileraren goialdean azaldu zen. Joseba Urteaga

Ponpeiaren **amak** alarma jo, eta publiko egin zen eskandalua. Juan Garzia

Ama sumatu nuen errezelen artetik begira, kezkati, aitak gorantz begiratu zuenean. Harkaitz Cano

Aqualandera joatea nire hileko gizarte laguntzaren hamarrena zen ia, eta nire **amak** ez zuen erabaki hura batere onartu. Joxan Elosegi

Atzean, **ama** eta gizon txiki beltzaran bat. Koldo Izagirre

Betebehar hori, animalien artean, **amak** betetzeko modukoa izan ohi da gehienetan. Iñaki Iñurrieta

Eskertu bai, baina **amarekin** afaldu nahiago duela esan dit. Jon Arretxe

Ama sukaldean ari zen, aurreko mantal zuri bat jantzita, arrautzak jotzen. Anjel Lertxundi

Txorikumeari jaten ahora ematen dion **amak** legez. Edorta Jimenez

Nire **amak** erabili ohi du hitz hori: aparatosoa. Harkaitz Cano

Ama belauniko jarri zen, eta nik burua astindu nuen. Jesus Mari Mendizabal

Atepetik narraz sarturiko berba horiekin esnatu nintzen, eta gero **amaren** berba ernegatuak entzun nituen begiak zabaldu orduko: Joseba Sarrionandia

Betiko galderak gurutzatu zituzten hasieran, zelan zaude, zelan aita eta **ama**, zelan Coruñan eta halakoak. Paddy Rekalde

Ez zen batere elizkoia, eztabaida luzeak izaten zituen honen **amarekin**. Koldo Izagirre

- **Ama**, baina zer ari zara? -bota dio zentimetro gutxira izanagatik nekez bereiz dezakeeen aurpegiari. Pello Lizarralde

Amak, beti bezala, afaltzeko denak prest ezarriak zituen. Daniel Landart

Egun batean, **amak** babarrun txuriak atera zizkidan bazkaltzeko, baina nik ez nuen nahi, eta ezetz esan nion. Joan Mari Irigoien

Ama oso harro zegoen semeaz, eta etxebizitza zahar hartan txoko bat prestatuta zeukan beti, ohea jantzi berria, mutila noiz agertuko zain. Javi Cillero

Zehatz-mehatz adierazirik zegoen bakoitzak nor zuen **ama** eta nor aita, eta nolakoa zen norberaren jokamoldea. Jose Morales

Baina bertso debekatuak zirenez, **amak** ahapeka kantatzen zituen. Joan Mari Irigoien

2 (izenondoekin)

Aintziartek ez du ongi ezagutzen gaurko gazteria baina Hondarribiako baserritik preso joan den abertzale gaztearen **ama** xaharraren begitartean nabari zaio itxaropenaren garra eta hori ikusi ondoan, haizea eroririk, uhainak eztiturik, ilunabarrak atxeman du etxeko bidean bizikletaria. Piarres Aintziart

Zer esango nion ba **ama** haserretu bati? Xabier Mendiguren Elizegi

Bizimodu bat izan zitekeela pentsatu nuen, azken ikasturtea behin eta barriz errepikatzen, kolaborazioak egingo zituen ezkerreko aldizkarietan, beharbada **ama** alargunaren etxean bizi zen. Koldo Izagirre

Merkatari Elkarteko zuzendaritza osoa zegoen bertan, eta ordurako esana zioten dendak 16: 00etatik 18: 00etara ixteko eskatu zuela lehendakariak, denak joan ahal izan zitezen elkartekide ospetsuari azken agurra ematera, 40 urte luzetan bere ahaleginik handiena herriaren garapenaren alde emana baitzuen, ordezkoa izan arren **ama** kutuntzat hartu zuen herriaren alde. Bego Montorio

Oi **ama** gazte baten artak haur sortu berriari. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ama Naturaren misterioak argitu ahal izatea, oihalaren beste aldea ikustea, une batez, une bakar batez bada ere... Fernando Morillo

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erregeren mosketariak ere harat-honat dabiltza eta halaber guardia suitzar eta eskoziarrak, Louvren gelditu ez direnak, bederen, dofina eta erregina-**ama** babestearren. Aingeru Epaltza

5 ***aberri ama*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***12*** *agerraldi)*

Ildo horretatik, Pekingo ordezkariak azpimarratu zuen " **Aberri Amatik** banatzeko ekintza terroristak egiten dituen aktibista" dela Dalai Lama. ETC-prentsa

Aberri ama aipatzen ez dizutenean! Horixe gauza ridikulua! Zer **aberri ama**, gero! Ama torturatzailea, zikiratzailea, hiltzailea, ebanjelizatzailea. ETC-prentsa

Lurralde hispanoamerikarrak " **aberri-amarengandik** " banatu ziren, askotan Britainiar Inperioaren laguntzarekin, Espainiaren monopolioaren gainetik aritu nahi baitzuen merkataritzan Amerikarekin. ETC-entziklopedia

Iraultzaileek, erregimen aldaketa sinbolizatzeko erabili zuten, baina, batez ere, " **aberri ama** "ren sinbolismoa azpimarratzen zuelako, errepublikaren seme-alabak babesten dituen ama elikatzailea. ETC-entziklopedia

6 ***ai, ama***

Hala zion Mamère jaunak - **Ai, ama** ! -erranez ez zela sekulan izanen Errepublikako president-gai. Herria

Bazen emakume bat beti kexaka zebilena senarra etxera ailegatzen zitzaiola: **Ai ama** ! Estomaka minduta dut. Berria - Kultura

Ai ama ! Zerbait arraroa gertatzen ari zait buruan! Futbola ote da? Politiko-galaktiosisa igual! Egunkariak portugueses irakurtzearen errua bertzela? Auskalo, uste dut zerbait behar dudala Berria - Kirola

Ai, ama ! Javi Cillero

Han ere ez al dago? **Ai, ama** ! Non sartu dute, ba? Pablo Sastre

-Juan... snif, i, i, Martin... **ai ama** ! Lagunduko di-da-zu etxera? Joxean Sagaztizabal

Ai, ama ! **Ai, ama** !. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

- **Ai ama**, lagunak! -egin zuen hasperen Ninik. Josu Zabaleta

Ai ama ! Gau hartan morroiari begiak biltzea kosta egin zitzaion, baina, azkenean, bildu zituen. Martin Anso

-Ai ama ! Menane Oxandabaratz

Saint-Ange Anderea: **Ai ama** ! Lagunok, hona hemen alde bietatik izorratuta.. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

" **Ai ama** !" Kirioetarainoko mina. Patxi Iturritegi

- **Ai ama**, ari dira Amaia! Iñigo Aranbarri

-Ai ama -esan zuen Edith Packerrek, kartoi batzuk hartu eta nahastuz. Koro Navarro

Rigobertak egun batean esan zion: " **Ai ama**, nik ez dut bizi nahi". Pablo Sastre

7 ***aita-ama*** *pl*

Berdinak izanik bazuten, gainera, beste desberdintasun bat: **aita amarekin** ezkondu zen, eta hor bukatu ziren kontuak; osaba Benjamin, berriz... Jon Muñoz

Aita-amak hil, edo? Itziar Otegi

Aita-amak izatea esperientzia paregabea da, benetan ederra. Luis Elberdin

Oraintxe zen bere **aita-amak** mendekatzeko unea. Iñaki Mendiguren

Aita amarekin gogaituta egongo zen, eta nirekin ere bai, eta alde egiteko aitzakiaren bat beharko zuen igual. Joseba Sarrionandia

Ezin izan nien ezer galdetu, **aita-amak** togaz jantzitako gizon luze batekin baitzetozen. Koldo Izagirre

Goresmenak **aita ama** uroseri eta familia guziari eta osagarrizko handitze bat Joana ttipiari. Herria

"Eta diru mordoa aurreztu genuen psikiatran, **aita-ama** literarioak ere baditugulako ezagutarazi zigulako». Berria - Kultura

Nola bizi dute nerabezaroan bat-batean **aita-ama** bilakatzen diren gazteek esperientzia hori? Berria - Euskal Herria

Zazpi urte zituela galdu zituen **aita-amak**, eta osaba Baldomero organistak hartu zuen umezurtza. Xabier Mendiguren Elizegi

Orain, ordea, Humirzah, seguruena, gaixorik zegoen nonbait ere, deabru babesgabea, umezurtz bakartia, **aita-amarik** gabea, beraz arduratuko zen emazte leialik ez zuena. Koro Navarro

Jaun Apezen ondotik, Elizako aintzindarien baimenari jarraikiz, Jesus beraren ordainak dire gaixoeri buruz; hekien egiazko **aita amak** dire. Xipri Arbelbide

Zenbait **aita-ama** ere bai, ume txikitxoak bizkarrean. Jokin Muñoz

Izan ere, hiritar gehientsuenak, neska-mutil haien **aita-ama** baitziren, eta ez zuten, beraz, haien kontra neurri gogorrik hartzerik nahi. Karlos Linazasoro

Edo gure **aita-amak** bertsolariak ziren. Andoni Egaña

Haren **aita-amak** zortzietako mezatara joaten ziren goizero Gardiner kalera, eta Dillon andrearen usain baketsua egoten zen etxeko sarreran. Irene Aldasoro

8 ***aita-ama ponteko*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi) pl*

Eguaztena ezkero garizuman sartuta gaude eta gurean ohitura da **aita-ama pontekoek** karapaixoa oparitzea besoetakoari. ETC-prentsa

Eta disko biribila ondu dute slowcore delakoaren **aita-ama pontekoek**? haiek ez dute gogoko slowcore hitz hori?. ETC-prentsa

Arrazoia: euskaraz, eta beste hizkuntza batzuetan, aitita-amamak (edo **aita-ama pontekoak**) bakarrik dira ait/amON, aita/ama (BI) TXI eta aita/ama (E) DER. ETC-literatura, saiakera

Ez zen gauza handirik behar: **aita-ama pontekoak**, lekukoak, eta apaiza; eta, noski, umea. ETC-zientzia, zuzenbidea

1807ko uztailaren 19an bataiatu zuten Nizako Saint-Martin-Saint-Augustinen eta Joseph Garibaldi eta Julie Marie Garibaldi izan zituen **aita-ama pontekoak**. ETC-entziklopedia

9 ***alokairuko ama***

Horretarako **alokairuko amek** duten orrialde elektroniko batean jarri zuen iragarkia. Berria - Gaiak

10 ***ama-alaba*** *pl*

Ama-alabak lurrean etzan ziren. Koro Navarro

Gure txalupatxoa bi emaztek gidatzen zuten, bata zaharra eta bestea gaztea, **ama-alabak**. Koldo Izagirre

Sydneyko denda handietan ibili ziren **ama-alabak** Europara eroango zituen opariak erosten. Xabier Montoia

Ez zen jaten ausartzen, ogia mozten zuenean **ama-alabak** begira zituela ikusirik. Karlos Zabala

Hura hil zen egunean, **ama-alabak** (zortzi urte, Rigobertak) bakarrik zeuden, finkako lanean. Pablo Sastre

Bazkalondoko ordu horietan, bi emakume zeuden mahai baten inguruan jarririk, **ama-alabak** eitez, gizonetan aritzeko itxura handirik gabeak. Aingeru Epaltza

-Oraintxe bada, nire lagunaren etxeko **ama-alabak** hemen baleude... Patxi Ezkiaga

Nahiko nahigabe eta zorigaitz baditen **ama-alaba** horiek, pentsatzen ahal dun. Anton Garikano

Ama-alabak eta aitona-amonak Zornotzan bizi dira orain. Berria - Euskal Herria

Izenik eman nahi izan ez duten **ama-alaba** bikote batek (50 eta 70 urte ingurukoak) gogor kritikatu dute komunismo garaia. Berria - Mundua

Bisenbis heldu zen autoan Paueko **ama-alaba** batzu ziren, biak hein bat bortizki kolpatuak izan dira. Herria

Bi emakumeek elkar besarkatu zuten, eta Badr-ek jakin ahal izan zuen **ama-alabak** zirela eta tranpan harrapatu zutela. Patxi Zubizarreta

Beharrezko bitartekoak berehala ditugu erabaki, eta nik hartu dut neure gain **ama alaba** gabe jalgi dadin deliberarazteko eginkizuna; bihar arratsaldean izanen da une erabakigarri hori. Jon Muñoz

Hala ere, ez nuen ur epelaz gozatzeko aukerarik izan, **ama-alabak** zuloren batetik zelatatzen ari zitzaizkidalako irudipen beldurgarriak asaldaturik egon bainintzen uneoro. Alberto Ladron Arana

Han daude **ama-alabak** eserita oraindik, harri eta zur. Oskar Arana

Azkenean aita auzitara eramatekotan zebiltzan **ama-alabak**. Gotzon Garate

11 ***ama berri*** *(orobat **amaberri**)* lehen seme edo alaba izan duen emakumea.

Ama berri zela utzi zuten alargun nire arrebaordea. Aingeru Epaltza

Ama berri askori aditzen zaiona da: "baina hau al da nik nahi nuena?, tipo honekin betiko...? Iñaki Segurola

Amaberriak gauza bat behar du beste guztien gainetik: ama izaten ikastea, eta ama izaten utzi egin behar zaio, inoiz ikasiko badu. Arantxa Iturbe

12 ***ama besoetako*** amabitxia.

Monarkek, orduan, festa erraldoi bat antolatu zuten jaiotza ospatzeko eta herrialde osoko maitagarriei deitu zieten haurraren **ama-besoetakoak** izateko. Iban Zaldua

Swing-en **ama besoetakoentzat**. Iñaki Mendiguren

13 ***Ama Birjina*** *(orobat **Amabirgina**)* kristau erlijioan Jesukristoren amaren izena. ik **birjina 6**.

Besta xoragarria bururatu zen **Ama Birjina** agurtuz, "Toustem-toustem" eta "Beti beti" kantu ezagutuekin! Herria

"Euskaraz gorriak indarra du; urdina, berriz, espiritualtasunaren kolorea da", Juaristik azaldu zuenez; "**Ama Birjinaren** eta aingeruen kolorea da urdina". Berria - Kultura

Ondo gauza eskaxa zen ezeren hasiera izateko, baina berehala sortu ziren **Ama Birjinaren** agerpen bati buruz mintzatzen ziren pertsonak. Bernardo Atxaga

Gura baduk, kaka **Ama Birjinarentzat**, baina Jainkoaz, ixo, argi? Urtzi Urrutikoeetxea

Behin batean, Lurrera jaitsi eta monasterio bat bisitatzea erabaki zuen **Ama Birjinak**, Jesus Haurra besoetan hartuta. Xabier Aranburu

Horman, kristal arrailatu baten atzetik bere suzko bihotza eskaintzen dio **Ama Birjinak** ostatuz dagoenari. Pello Lizarralde

Hamalau urterekin maindireen azpian lehenengo aldiz gozatu nuenetik nuen hura zain, harrezkero ezin izan bainion utzi esperientzia hura errepikatzeari, nahiz eta **Ama Birjinari** eta hainbat santuri errezatzen nien eta puta bat nintzela amesten nuen sarri askotan. Joseba Urteaga

Palioak, seguru aski kanpai-errepika, baina ezin entzuna, **Ama Birjina**, mutiko kantariak, baina ezin entzunak. Joxe Austin Arrieta

Toki gorpuzduna diot, esate baterako, tenplu edo mendi bat, non baitago Jesu Kristo edo **Ama Birjina**, zer nahi dudan kontenplatu. Patxi Altuna

Elurteak izoztea ekarri zuen trailan eta izotz gogorrak iraun zuen 75 egunen segidan, martxoko **Ama Birjina** inguru artio. Pello Zabala

Ez bazara Baigorriarra jakin behar duzu Oilandoiko kaskoan, abantxu 1 000 metro goratan, kapera bat badela, Jean Olagarai Baigorriko erretoreak **Ama birjinaren** amodioz eraiki zuena, eta benedikatua izan zena 1942an, gerla denboran, maiatzaren 25ean. Michel Oronoz

'Lagundu egiezu, Itsasoko **Ama Birjina** Laztana! ' esan zuen arrantzale handi batek. Joseba Sarrionandia

14 ***ama birjina*** *(orobat **amabirjina**, **amabirjin** eta **amabirjiñ**)* Ama Birjinaren irudia. ik **birjina 7**.

Arrain saltzaileak ziren; zaharrena liluragarria zen; gazteak ur gezatako arraina saltzen zuen eta Murilloren **ama birjina** baten antza zuen, horail-horaila, bere zamo eta aingiren artean. Karlos Zabala

Goizean goiz, xoriek goxoki beren xirularekin iduzkiaren lehen argizpiak agurtzean, elizatik ateratzen ziren gizon emazteak eta landaz landa proosionean joaiten ziren edo gurutze batetarat edo **ama birjinaren** itxura baterat. Herria

Ikus-entzunezko euskarrien laguntzarekin, erretaulak, **ama birjinak**, kalifen garaiko kutxatxoak, bolizko irudiak, kodeak, bibliak, txanponak, ikonoak, kapitelak, eta ostilamenduak bilduta ageri dira erakusketan. Berria - Kultura

Beiruteko gerrillari batek **ama birjinaren** argazkia du fusilaren kulatan. Berria - Kultura

Baina Ameztoiren berdea, Txillidaren lainoa, Artetaren **ama birjina**. Berria - Kultura

Jentilek ez bezala, nik ez nuen hutsik egingo baina, eta Baionako Katedrala botako nuen hankaz gora, marmolezko bere santu, **ama birjina** eta aingeru zuri guztiak barnean zituela. Hasier Etxeberria

15 ***Ama Birjina Abuztuko***

-1912an, **Ama Birjina Abuztuko** egunez, galerna itzelezkoa Kantauri itsasoan: 100dik gora hildako, gehienak Bermeokoak; itsasontzi asko hondoratu zituen. Pello Zabala

Ama Birjina Abuztukoaren anparoan, hortxe kokatuta dator San Roke, eta, normalean, egun pare bat aurretik festagiro aparta lortu ohi dute halako herriotan. Pello Zabala

16 *ama eliza*

Pierre Eyt Bordeleko kardinale zena gazterik hil zaigu eta, Larunseko semea bere sorterrian ehortzi dutelarik, gure ustez galtze handia izan da **Ama Elizarentzat** eta herriarentzat. Piarres Xarriton

17 *ama eskola* haur txikientzako eskola.

Beste ikastoletan bezala, **ama eskolan** erakaskuntza osoki eskuaraz egiten da; lehen maila aldiz elebiduna da: euskaraz eta frantsesez. Herria

Aurtengo xifre zonbeit: **ama eskolan** , 2 urtetarik 6 urte artinokoak; 55 haur dira eta lehen mailan edo " primaire " delakoan. Herria

Angeluko eskola publikoetan kondatzen ditugu ehun gela, 38 **ama eskoletan** , 61 lehen mailan, horietarik 3,5 gela elebidunak, denak prest ziren sartze egunerako. Herria

Astelehen huntan egin da eskoletako sartzea, bederen **ama-eskola** eta lehen mailetan diren ikasleentzat. Herria

Eskoletako liburuak dira, **ama-eskolako** eta lehen mailako ikasleentzat eginak. Herria

Ikasturtean zehar, San Josep ikastegiko **ama-eskolakoek** ukan dituzte lau musika-ekitaldi, Joseph Lafitte hazpandar kantariak animaturik. Herria

Urrats hau garrantzia handikoa da, gaur hemengo haur batek **ama-eskolatik** lan-mundurainoko ikasketak osoki euskaraz jarraik baiditzazke. Herria

18 *ama esne*

Ezagutzen nuen dagoeneko gelaren zenbakia, 466 a, baita elikatu ninduten **ama-esnearen** eta nire bizitzako hamabosgarren egunean egin zidaten bularraren erradio-plakaren prezioa ere. Joxan Elosegi

19 *ama esnekatari*

Nahiz eta ezin ukatu zen alarguna andre motza eta upela bezain biribila zela, **ama esnekatari** baten alaba eta ezjakin hutsa aita, hala ere familia osoa leporaino diruz beteta zegoela esaten zuten beren artean yeshivako ikasleek. Koro Navarro

20 *ama familiako*

Aljeriangauzak aldatzen ari dira **ama familiakoen** ahalen alde eta senar-emazteen berdintsunaren alde familiaren gidapenean. Herria

- Bai hala xira, sortetxean berean nehork onartzen ez duen **ama familiako** akitua. Itxaro Borda

Euskal Foru zuzenbidean **ama familiakoa** eta, oro har, emakumearen egoerari buruz, kontsulta daiteke Goyhenetche, Manex: Histoire Générale du Pays Basque. Andres Urrutia

Ama familiako zainartak heldu ziren beren semeei arropaz hanpatu zakuak ekartzera, noiz libratuko zituzten oihuz eskatzen. Itxaro Borda

Ama familiakoa xuriketen egiten ari da, eta erran dit "Vous comprenez, je suis une mère et une épouse catholique"; "Badakizu ni andre eta ama katolikoa naiz". Piarres Aintziart

Gobernadorearen emazteak ez zuen inola ere horrelakorik susmatzen, eta, **ama familiakoa** , hiriko dama nagusia eta, azken batean, dama zen aldetik, izugarri mindu eta haserretu zen auziaren berri jakin zuenean, eta haren haserrea bidezkoa zen edonondik begiratuta ere. Jose Morales

Ama ohartzen zelarik haren hegada hurbilari, lasterka joaten ginen usu intxaurrondo azpi edo inguruan urgoiki zebilen oilo **ama familiakoari** , zakurrek ihausi eginez, gatuek ihesi eta puralleriak lau haizetara eskapu. Piarres Aintziart

Bi emazte, **ama-familiako** gazteak, orai haurrak 10-14 urtetan dituztenak, eta haiek eskuara erabiltzen dute arras ederki, eta arras errexki. Menane Oxandabaratz

Pietuna edo postaria heldu zenean, hilabetean behin, diru horrekin, bihotza lasaitzen zitzaion **ama familiakoari** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

21 *ama hizkuntza* lehen hizkuntza

Ingelesa **ama hizkuntza** duen ezein hiztunek ez lituzke ingelesezko bi hurrenkera horiek sortuko. Itziar Laka

Aiton-amonen italiar **ama-hizkuntza** . Iñaki Mendiguren

Bere borrokakideena ez bezala, Marcosen **ama-hizkuntza** gaztelera da. Iñigo Aranbarri

Ama-hizkuntza ahaztu bazitzaion ere, bertakoek ondo hartu zuten **Ama hizkuntza** eta heriotza-hizkuntza ez baitira izaten beti bat eta bera. Pablo Sastre

22 *ama jainkosa*

Zeren eta **ama jainkosa** bat izan baitzitekeen, baina jainkosa hauskor bat, eta jainkosaren ahuleziak eta haren hauskortasunak erakartzen ninduten erremediorik gabe! Joan Mari Irigoien

23 *ama lur* *(orobat* ***amalur****)* lurra amatzat hartua.

"Ama lurra" aita eta ama da enetzat. Ana Urkiza

Akemenestarrek beren pertsiar ama-hizkuntzari pertsiar **ama-lurrari** bezain leku apala eskaini zioten inperioaren gobernuan. Iñaki Mendiguren

Gure Euskal Herri malenkonizatuak ere, antzinatea mila kobetan altxor gisa gordea, **Ama Lur** fetixizatu horren irakurketa psikoanalitikoa merezi du. Joseba Zulaika

Azkenik, euria ere hil egiten da, aita eterrak **ama lurraren** sabelera jaurti duenean. zerua da guztion aita eta **ama lur** elikatzailea, handik isuritako ur tantak hartzean ernaldua, uzta gardenez, zuhaitz mardulez eta gizakumez erditzen da, piztien enda guztiez erditzen da, denei eskuratzen baitie gorputzak bazkatzeko, bizitza eztia luzatzeko eta umeak zabaltzeko azkurria. Xabier Amuriza

Anai-arreba dira eguzkia, ilargia eta lurra ("arreba **ama lurra"**), sua eta ura. Askoren artean

Lur duk gure ama, **Amalur** . Michel Oronoz

24 *ama nagusi*

Familiei goizegi osturiko gazte batzuk eta umezurztegi bateko **ama nagusia** salbu, irudikaturik zeudenetatik bat ere ez zen ezkongabe hil, haietako inor ere ez zen hil umerik eta testamenturik gabe, bat ere ez olio santua hartu gabe. Monika Etxebarria

Hura entzun zuenean, urrats arin batzuk eginik, Sararen aurrean paratu zen **ama nagusia** . Joan Mari Irigoien

Ama nagusia bere onetik atera zen. Joan Mari Irigoien

Ama nagusiak Lagarde eta Micharden XVI. mendeko literatur testu-liburua eskuan zuela hartu ninduen. Joseba Urteaga

-Zuek zein zarete? -galdetu zien azkar **ama nagusiak** . Koro Navarro

25 *ama ponteko* *(corpusean ez dago; ETCn* ***7*** *agerraldi)* amabitxia.

Hartu egin zuten, **ama ponteko** bat eman zioten eta handik joan zen. ETC-literatura, saiakera

Donostiako amatxi, Menchu Galen **ama ponteko** zen. ETC-prentsa

Eguaztena ezkero garizuman gaude; horrek esan nahi du askok eta askok egunotan **ama ponteko** edo aita pontekoarengandik karapaixo bat jasoko dutela. ETC-prentsa

Jaialdiak, gainera, ohorezko presidente bat eta **ama ponteko** bat izendatu ditu: Asghar Farhadi zinemagile irandarra eta Itziar Ituño aktore bizkaitarra. ETC-prentsa

DON LUIS.- Ah! Zera... Aberasturitarrena da. Alabak oraintsu izan du mutikoa... Unax, Margariren familikoak dira, badakizu, eta bera omen doa **ama ponteko** . ETC-telebista

26 *ama puta*

Ama putaren kimu ustelak! Aingeru Epaltza

Patxik garrasi egin zuen, "Hator hona, eta borrokan egin, zuek, **ama putaren** larru-horiok". Edorta Jimenez

-Ama putaren semea! Zertan habil zerripotro hori? Patxi Iturritegi

27 *ama santisima*

Rocío Juradoz eta bere **ama santisimaz** oroitu nintzen. Juan Martin Elexpuru

Konpondu nuen lapsusa, eta adiskideek zurtu samarturik begiratu zidaten, edo haserre ausaz, ea zertarako kontatu nahi nituen zenduak, ea ez al nuen buruhauste larriagorik buruan, haserre, suak hartuta, kontatuko zituela, bai, haiek denak Ministerioak edo bere **ama santisimak** , bihozgabe doilorra. Karlos Linazasoro

28 ***ama-seme*** *pl*

Oso ongi ezagutzen zuten elkar, **ama-semeek** edo senar-emazteek elkar baino hobeto. Xabier Olarra

Ta Joxe, oain Portolon bizi den au, umea zula alargun geldittu andrea, ta Aranatze yon ittuen **ama semek**, ta urte askon an bizittu ittuen. Patziku Perurena

Aireportura lagundu eta **ama-semeak** hegazkinean sartzen ikusi nituenean, ezerezak irentsi zidan barrena. Hasier Etxeberria

Eta ni hantxe, ezer ulertu gabe, zinema aretora sartzen ari ziren **ama-seme** eta aita-alabei begira, inbidiaz eta hotzak amorratzen. Harkaitz Cano

Ama-semeek begirakunea gurutzatu zuten, eta ama gelatik irten zenean, semeak jarraitu egin zion, eta atea itxi. Patxi Zubizarreta

Eleberri honen kasuan, arrazoia haurdunaldia eta erditze zorigaiztokoa da, **ama-semeak** hiltzen baitira, eta Andres Hurtado bere buruaz beste egitera eraman. Josu Zabaleta

Ama-semeak bakarrik joan ziren. Koro Navarro

Familia berekoak zitezkeen, aita **ama seme** alaba. Lutxo Egia

Baina guk, gizakiok, ezagutu dugu, haren semea ezagutu dugu: ama hori gu gara, haren patua gu gara, **ama-semeak** dira gizakiaren baitan dagoen gizatasuna. Felipe Juaristi

Ama Monika Ostian hil zen eta bertan **ama-semeek** berebiziko esperientzia mistikoa bizi izan zuten elkarrekin. Imanol Unzurrunzaga

Sequoyah mutikoa zela, amak senarra utzi zuen eta **ama-semeek** cherokee indiarren bizimodua egin zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ama-semeek ferreteria bat zeukaten Wisconsingo Plainfield herrixkan. Gotzon Garate

Gero, **ama-semeak** dauden oharka ondotik jaiki, eta supazterreraino hurbildu da. Anjel Lertxundi

29 ***ama-usteko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Lurreko apalak, artilea ekoizteko ardiekin nahasten ditu zokoratu nahi lituzkeen **ama-usteko** enpresari kartesiar txukunak, etxean nahiz kalean otso den horrek, zinez eta Benetton. ETC-prentsa

30 *ama zelula* ik **zelula ama**.

31 ***arroka ama*** *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Horiek hala, higadura hainbat eskualdetan **arroka amaraino** iritsi da, eta horrek ahalbide zezakeen ur gehiago lur azpira sartzea eta failetan eragin, eta lurrikarak abiarazi. ETC-prentsa

Jatorrizko **arroka ama** zein izan daiteken ondorioztatzea (protolitoa). ETC-zientzia, zuzenbidea

Horren ondorioz, **arroka amaren** jatorrizko konposizioa aldatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurzoruko sulfatoa **arroka amaren** meteorizaziotik iristen da nagusiki. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste oztopo batzuk dira, besteak beste, **arroka ama** magnetikoak sortutako hondoko interferentzia edo okupazio-aldi luze batek eremu zabal batean utzitako geruza magnetikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hauek, **arroka amatik** (jatorrizko arrokatik) migratu dezakete biltegi arroketara, eta hala gertatuz gero, ustiagarriak izango dira. ETC-entziklopedia

Oso ezaguna da **arroka ama** edo biltegia izateagatik, bere porositate eta iragazkortasun edo irazkortasun baldintzak direla eta. ETC-entziklopedia

32 ***Birjina Ama***

Jarrai dezagun hemendik aurrera hirugarrena ulertzen bigarrena sakonduz, hau da, zer gertatu zen gau hartan, **Birjina Amagandik** jaiotako Jainkoaren Semea gure senide izatera iritsi zenean. Joan Mari Lekuona

33 ***eliza ama*** *(orobat **elizama**)*

Nik ere, eskolak egin izan ditut Erroman eta Parisen gaindi, **Eliza Amari** esker. Piarres Xarriton

Fraide eskuindarrek ezkertiar ateo bihurtu baldin baninduten, ez pentsa funtzionario ezkertiar progre-usteko haiek atzera ere **eliza amaren** magalera itzularazi nindutenik. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiriko miliziakoak - **Eliza Amaren** baitan ongi haziak, denak- kanpora uzteko prest daude. Aingeru Epaltza

Goazen, beraz, Erromako gure **Eliza Amarengana** eta jakinaraz diezaiogun Aita santuari Jainkoak gure alde egin duena. Askoren artean

Erran nahi baita, Kalbinoren seme baten izkribuak -Erromako **Eliza Amaren** kontrakoa, beraz- lagundu duela bertutearen bideari jarraikitzen, Erromako **Eliza Amak** manatzen duenarekin bat. Aingeru Epaltza

Eliza Ama Katolikoaren fedean. Imanol Unzurrunzaga

Eliza Ama Santu Katoliko Apostoliko eta Erromakoaren begietara. Iñigo Aranbarri

Jainkoak bereganako fedea indartzera eta **Eliza ama** santuko prelatu eta klerikoei laguntzera deitu gaitu. Askoren artean

Erromako **Eliza Ama** Sainduaren sineste katolikoaren arabera. Piarres Xarriton

Jaunaren aginduen eta **Eliza ama** santuaren legeen arabera. Askoren artean

Eliza ama santaren kontzilioez, kanonez eta konstituzioez ere baliatzen dira. Patxi Altuna

Ikusten duzu nola Jainkoak eta Andre Mariak miserikordia handi bat egin dizuten egun honetan, gure **Eliza Ama** Santaren grazian eta miserikordian hartu baitzaituzte. Juan Garzia

Aldez aurretik, gure **Eliza Ama** Santak agintzen duen eran. Patxi Ezkiaga

34 ***familiako ama***

Bere denboran **familiako ama** on bat izanik Trinidadek iragan du xahartze bat goxoa bere haur eta horien familiez ongi inguratua. Herria

Aurreko astean hilda aurkitu zuten **familiako ama** baten kasua aipatu zidan. Joseba Urteaga

Gainera, haren lau alabak senar zintzoekin ezkonduak ziren, eta **familiako amak** ziren. Patxi Zubizarreta

35 ***harri ama*** *(corpusean ez dago; ETCn **36** agerraldi)*

Edafologian, **harri ama** lurzoruaren geruza sakona da, aldaketarik jasan ez duena. Batzuetan D horizontea izena ere ematen zaio. **Harri ama** erregolitoaren edo material disgregatuen azpian dago. ETC-entziklopedia

Gakoa, jakina, leuna, aratza zen hori, **harri ama** edo 'emandakoaren' izaera argitzean zetzan. ETC-literatura, saiakera

Lurzorua: Lurraren kanpo-geruzako alderdi solidoa da, **harri amatik** azalerainokoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Harri ama mota, klima-erregimena edo jurisdikzio administratiboa irudikatzeko erabili ohi den eremu-sinbolo kualitatiboa da bilberik ezagunena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lur-zoruaren oinarria (azpian dagoen **harri amatik** zuzenean garatzen da; mikroorganismoen jarduera, oro har, oso baxua) ETC-zientzia, zuzenbidea

Atal honetan, **harri amaren** jatorriak garrantzi handi du, bera baita lurrari osaera minerala eta kimikoa ematen dizkiona. ETC-prentsa

Lurraren nortasun berezia aipatzen delarik, ez da **harri ama** aipatzen, baizik eta deskonposatzen den hori. ETC-prentsa

Konglomeratuzko **harri-aman** garatzen den lurzoru geruzaren arabera, bat edo bestea ugaltzen da. ETC-prentsa

Bat: hidrokarburo likidoak eta gaseosoak, **harri aman** harrapatuta daudenak. ETC-prentsa

36 ***Jainkoaren ama***

Efesoko herria ikasi zuenean kontzilioko gurasoek erabaki zutela Ama Birjinari **Jainkoaren Ama** dei zekiokeela, bozkariotan jarri zen. Iñaki Iñurrieta

Hobe genuke, bai, jauregiko jende guztia kaperan bildu eta errosario bat errezatzea, zeren mirakulua, nehon ere egoitekotan, **Jainkoaren amaren** eskuan baitago... Joan Mari Irigoien

Prozesioetan, elizan, tulezko soineko eta txanoa janzten zituen, satinezko xingolekin, eta, bere hatz handituekin, lits aberatseko oihal zetazkoaren makila urreztatuari eusten zion goi-goian, **Jainkoaren Ama** brodatu baten irudia erakutsiz. Karlos Zabala

Haiek ez dutela aita santuarengan eta **Jainkoaren amarengan** sinesten, besterik ez. Irene Aldasoro

Nire gaitzaren makurrenean, sukarrak deusetaz ohartzera uzten ez zidalakoan, abemariaka abiatzen zen nire ondoan, **Jainkoaren amaren** medaila eskuan zerabilela. Aingeru Epaltza

37 ***jainkosa ama*** *(corpusean ez dago; ETCn **44** agerraldi)*

Adriano-ren harresian bada idazkun bat, zeinean barduliarren lehendabiziko kohorteak tenpluaren eraikuntza **jainkosa amei** eskaintzen dien. ETC-literatura, saiakera

Beronen irudia dugu ezagutzen: **jainkosa ama** hau Horus bere semeari titia ematen, askoz geroago Ama Birjinak Jesus eradoskiko duen bezala. ETC-literatura, saiakera

Emakumeak gizonen begietan duen itzala, hain zuzen, gizonek berek emana da; gizonak belauniko jartzen dira Bestearen aurrean, **Jainkosa Ama** gurtzen dute. ETC-literatura, saiakera

Emakume agintarien irudi ugari agertzen da, eta baita venus neolitikoak ere, **Jainkosa Amarenak**, hain zuzen. ETC-literatura, saiakera

Zezenketetan ere, eskaintza egiten zaio **Jainkosa amari**. ETC-prentsa

Instagramen Hollywood, Netflix eta ospearen Olinpo berrietako **jainkosa ama** ia guztien seme-alaba are ospetsuagoek beren amengandik jasotako dohainak goraipatu dituzte, arrosa, bonboi eta irribarre eztitsuen artean. ETC-prentsa

Eta adierazi zuen Historiaurrearen hasieran bazela monoteismo antzeko bat '**jainkosa amaren** gurtza"ren inguruan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bere izena, gaur egun Turkia den mendebaldeko zati izan zen Frigiako **jainkosa amaren** izenetik dator, Zibelesetik, alegia. ETC-entziklopedia

jainkosa Ama Lurra, munduko hainbat erlijio eta mitologietako ama jainkosa. ETC-entziklopedia

Coatlicue, **jainkosa ama**, dirudienez kolonaurreko kultura oinarritzen den dualtasunaren adibide argi bat da, bizitza eta heriotza harreman banaezina, kontzeptu beraren bi aurpegi. ETC-entziklopedia

38 ***katu-ama*** ik **katama**.

Gehiegi hurbildu baitzen [txakurtxoa] katutxo jaio berrien ume-aldrara, **katu-amak,** muzindu, puzka hasi, eta behatzetatik burugaineraino latz-harrotu zituen ileak. Juan Garzia

39 ***ore ama*** *(corpusean ez dago; ETCn **43** agerraldi)*

Bezeroak gero eta zorrotzagoak direnez, **ore amaz** eginiko ogiak begiz joak dira. ETC-prentsa

Supermerkatu askotan saltzen dute gaur "altxagarri naturalarekin" edo '**ore amarekin**" eginiko ogia. ETC-prentsa

Ore ama naturalen kultiboa egiten hasi ginen, eta gaur egun bost ogi ekologiko egiten ditugu, egunero. ETC-prentsa

Gaur egun kontsumitu ohi den ogia ez dago ogi osasuntsuarekin alderatzerik: ez du **ore amarik**, altxagarri kimikoak erabiltzen dira eta ez du modu naturalean hartzitutako elikagaien deskonposatze prozesurik. ETC-prentsa

Integrala zer den eta zer ez: artisau zeri deitu eta zeri ez: **ore ama** eta hartzitze prozedura: BEZa zeri erantsi... ETC-prentsa

Ogia egiten hasi aurreko egunean hasten da prozesua: aurreko ogi-alditik gordetako orantza, **ore ama**, handitzea da lehenengo lana. ETC-prentsa

Ore amaz eginiko ogiaren eta ogi integralaren alde onak zabaltzen lan egiten duen okina da Edorta Salvador. ETC-prentsa

Ore amarekin egiten dute ogia. ETC-literatura, saiakera

Orearen ezaugarria, **ore amarekin** eginda ez egotea da, eta legamia oso gutxi erabiltzen du. ETC-entziklopedia

40 ***zelula ama***

Iaz giza enbrioi klonatuetatik **zelula amak** atera zituela aldarrikatu zuen Hego Koreako zientzialariak barkamena eskatu zuen atzo, bere ikerketako datuak manipulaturik zeudelako. Berria - Gaiak

Enbrioien **zelula amen** lehenengo bankua sortu dute. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

ai ama (16); **ait ama** (19); **ait ama uroseri** (12); **aita ama** (67); **aita ama eta** (13); **aita ama uroseri** (13); **aita edo ama** (23); **aita eta ama** (133); **aita nahiz ama** (8); **aitak ama** (11); **alabaren ama** (10); **alaben ama** (18); **ama agertu** (8); **ama aholkularia** (9); **ama aholkulariak** (10); **ama alaba** (10); **ama alabak** (47); **ama alabek** (11); **ama alaben** (24); **ama alaben arteko** (13); **ama baino** (17); **ama bakarrik** (18); **ama bat** (72); **ama batek** (85); **ama batek bere** (21); **ama baten** (75); **ama bati** (12); **ama begira** (9); **ama bera** (22); **ama bera ere** (8); **ama beraren** (10); **ama bere** (31); **ama berriz** (12); **ama beti** (20); **ama bezain** (9); **ama bezala** (22); **ama bihurtu** (10); **ama bihurtzen** (8); **ama biologikoa** (8); **ama birjina** (182); **ama birjina eta** (11); **ama birjina ospitalera** (9); **ama birjinak** (24); **ama birjinaren** (135); **ama birjinari** (36); **ama bizi** (11); **ama chantemesse** (9); **ama chantemessek** (10); **ama da** (50); **ama dela** (10); **ama den** (13); **ama ditu** (8); **ama edo** (39); **ama edo aita** (13); **ama ere** (128); **ama ere bai** (8); **ama ere ez** (11); **ama eskola** (16); **ama eskola eta** (9); **ama eskolako** (20); **ama eskolan** (23); **ama eskolatik** (11); **ama eta** (374); **ama eta aita** (23); **ama eta alaba** (11); **ama eta anai** (9); **ama eta arreba** (8); **ama eta biok** (29); **ama etorri** (8); **ama etxean** (8); **ama etxeko** (8); **ama euskal** (10); **ama ez** (130); **ama ez da** (11); **ama ez zegoen** (8); **ama ez zen** (30); **ama ezin** (11); **ama familiako** (30); **ama familiakoa** (8); **ama gaixo** (18); **ama gaixoa** (14); **ama gaixoak** (8); **ama galdu** (13); **ama gazte** (14); **ama gazteak** (10); **ama gazteeri** (8); **ama guziak** (9); **ama guzieri** (10); **ama haserretu** (9); **ama hil** (81); **ama hil zen** (13); **ama hila** (10); **ama hizkuntza** (80); **ama hizkuntzan** (22); **ama hori** (12); **ama horiek** (9); **ama horrek** (12); **ama ikusi** (21); **ama ikusten** (11); **ama ikustera** (14); **ama izan** (81); **ama izan nahi** (18); **ama izango** (18); **ama izatea** (26); **ama izateko** (46); **ama izaten** (8); **ama lur** (19); **ama lurra** (20); **ama lurraren** (8); **ama maite** (11); **ama maitea** (12); **ama maria** (18); **ama nagusia** (12); **ama nagusiak** (12); **ama negarrez** (22); **ama nire** (17); **ama non** (8); **ama ona** (14); **ama oso** (27); **ama ospitalean** (9); **ama seinalatuko** (11); **ama seinalatuko du** (11); **ama semeak** (28); **ama semeek** (9); **ama semeen** (8); **ama sukaldean** (12); **ama txit** (14); **ama uroseri** (27); **ama uroseri eta** (13); **ama zaharra** (10); **ama zaharrak** (8); **ama zela** (14); **ama zelulak** (8); **ama zen** (56); **ama zena** (10); **ama zenak** (14); **ama zenaren** (12); **ama zendu** (9); **ama zuen** (11); **amaren ama** (9); **arantzazuko ama** (12); **baina ama** (54); **baita ama** (11); **bat ama** (11); **batean ama** (16); **batek ama** (9); **baten ama** (32); **beraren ama** (10); **bere ama** (228); **bere ama eta** (16); **beren ama** (25); **beren ama hizkuntza** (9); **beste ama** (12); **bi ama** (26); **bi ama ditu** (8); **bi haurren ama** (8); **bideko ama** (25); **bideko ama birjina** (17); **bigarren ama** (8); **da ama** (58); **dago ama** (17); **den ama** (20); **dira ama** (10); **du ama** (32); **duen ama** (16); **dut ama** (17); **dute ama** (8); **duzu ama** (13); **edo ama** (55); **eko bideko ama** (16); **eliza ama** (26); **emazte eta ama** (9); **en ama** (12); **ene ama** (36); **ere ama** (24); **eta ama** (552); **eta ama birjina** (14); **eta ama birjinaren** (10); **eta ama ere** (15); **eta ama eta** (12); **eta bere ama** (34); **eta gure ama** (30); **eta haren ama** (35); **eta hire ama** (8); **eta nire ama** (11); **ez ama** (24); **ez zen ama** (8); **floraren ama** (8); **gero ama** (15); **goresmenak ait ama** (12); **goresmenak aita ama** (17); **gure ama** (288); **gure ama ere** (10); **gure ama eta** (10); **gure ama ez** (10); **guztien ama** (16); **haren ama** (101); **haurraren ama** (11); **haurren ama** (37); **herriko ama** (8); **hire ama** (49); **honen ama** (12); **iruñ jainkoaren ama** (18); **jesusen ama** (8); **lau haurren ama** (8); **nahiz ama** (10); **naiz ama** (9); **neure ama** (11); **nik ama** (10); **nintzen ama** (9); **nire ama** (140); **nire ama ere** (8); **nire ama eta** (10); **nola ama** (9); **nuen ama** (27); **orain ama** (8); **presoaren ama** (12); **seme alaben ama** (15); **ticesko ama** (9); **zait ama** (8); **zegoen ama** (13); **zela ama** (9); **zelula ama** (16); **zen ama** (104); **zen bere ama** (9); **zen gure ama** (13); **zion ama** (9); **ziren ama** (23); **zitzaidan ama** (15); **zitzaion ama** (17); **zuen ama** (96); **zuen bere ama** (9); **zure ama** (114); **zuten ama** (11)

aita amak (78); **aita amak eta** (9); **aitak edo amak** (9); **aitak eta amak** (49); **amak aita** (8); **amak aitari** (18); **amak baino** (12); **amak bazekien** (9); **amak berak** (18); **amak bere** (62); **amak berehala** (12); **amak beste** (10); **amak beti** (29); **amak bezain** (8); **amak bezala** (13); **amak deitu** (11); **amak dioenez** (10); **amak egin** (19); **amak egindako** (11); **amak eman** (18); **amak erabili** (8); **amak erakutsi** (10); **amak erantzun** (11); **amak ere** (103); **amak ere ez** (17); **amak erran** (21); **amak esan** (94); **amak esan zidan** (10); **amak esan zion** (22); **amak esan zuen** (17); **amak esaten** (58); **amak esaten zion** (8); **amak esaten zuen** (28); **amak eta** (136); **amak eta biok** (17); **amak ez** (205); **amak ez du** (14); **amak ez zekien** (11); **amak ez zidan** (9); **amak ez zion** (13); **amak ez zuen** (57); **amak ezin** (12); **amak hain** (8); **amak hala** (10); **amak hartu** (10); **amak haurra** (11); **amak hitz** (13); **amak hitz egin** (8); **amak irribarre** (8); **amak kontatu** (13); **amak negar** (10); **amak nire** (12); **amak oso** (16); **amak zer** (16); **baina amak** (67); **baina amak ez** (8); **baina gure amak** (12); **bere amak** (84); **da amak** (8); **dio amak** (28); **dit amak** (18); **ditu amak** (8); **du amak** (36); **edo amak** (22); **egin zuen amak** (13); **enbrioietako zelula amak** (8); **ene amak** (12); **erantzun zion amak** (8); **ere amak** (8); **erran zuen amak** (9); **esan dio amak** (9); **esan zidan amak** (34); **esan zion amak** (30); **esan zuen amak** (51); **esaten zuen amak** (25); **eta amak** (308); **eta amak ere** (12); **eta amak ez** (20); **eta bere amak** (11); **eta gure amak** (48); **eta haren amak** (9); **ez amak** (12); **floraren amak** (21); **galdetu zidan amak** (8); **galdetu zion amak** (12); **galdetu zuen amak** (10); **gure aita amak** (12); **gure amak** (427); **gure amak beti** (9); **gure amak ere** (17); **gure amak esan** (9); **gure amak esaten** (27); **gure amak eta** (11); **gure amak ez** (22); **haren amak** (45); **hire amak** (26); **ninduen amak** (8); **nire amak** (86); **nola amak** (11); **orduan amak** (10); **zelula amak** (102); **zen amak** (14); **zeren amak** (8); **zidan amak** (95); **zien amak** (12); **zigun amak** (9); **zion amak** (112); **zion amak aitari** (8); **zion gure amak** (11); **zituen amak** (15); **zuen amak** (221); **zuen gure amak** (77); **zure amak** (56)

aitak amari (27); **aitaren eta amaren** (19); **aitari eta amari** (12); **amarekin batera** (20); **amarekin bizi** (13); **amarekin eta** (29); **amarekin hitz** (21); **amarekin hitz egin** (12); **amarekin izan** (9); **amaren ahizpa** (13); **amaren ahotsa** (19); **amaren alabak** (57); **amaren alabak taldea** (9); **amaren aldeko** (21); **amaren aldetik** (23); **amaren aldetiko** (13); **amaren altzoan** (12); **amaren ama** (9); **amaren anaia** (16); **amaren atzetik** (8); **amaren aurpegia** (9); **amaren aurrean** (16); **amaren azken** (9); **amaren begiak** (8); **amaren besoetan** (14); **amaren bila** (18); **amaren eskua** (8); **amaren eskuak** (19); **amaren esnea** (9); **amaren eta** (70); **amaren etxea** (15); **amaren etxean** (15); **amaren etxera** (16); **amaren etxetik** (10); **amaren gainean** (8); **amaren heriotza** (12); **amaren hitzak** (11); **amaren irudia** (11); **amaren izena** (12); **amaren kontra** (10); **amaren ondoan** (26); **amaren sabelean** (40); **amaren sabeletik** (38); **amaren seme** (8); **amaren ustez** (8); **amarengana joan** (14); **amari begira** (11); **amari begiratu** (10); **amari buruz** (26); **amari deitu** (12); **amari ematen** (8); **amari ere** (22); **amari erran** (10); **amari esan** (17); **amari esaten** (10); **amari esker** (8); **amari eta** (49); **amari ez** (28); **amari ez zitzaion** (8); **amarik ez** (8); **amarik gabe** (13); **arantzazuko amaren** (8); **baina amaren** (18); **baina amari** (10); **bat amaren** (8); **bere amarekin** (31); **bere amaren** (136); **bere amari** (46); **bideko amaren** (13); **da amaren** (12); **dio amari** (13); **diot amari** (14); **du amaren** (12); **duen amaren** (8); **edo amaren** (15); **edo amari** (9); **ene amaren** (10); **ere amaren** (18); **esan nion amari** (8); **esan zion amari** (16); **esaten zion amari** (10); **eta amarekin** (43); **eta amaren** (158); **eta amaren alabak** (8); **eta amari** (84); **eta bere amaren** (17); **eta gure amari** (10); **eta haren amaren** (8); **ez amaren** (9); **ez amarik** (9); **gero amari** (9); **gure amarekin** (19); **gure amaren** (101); **gure amari** (92); **haren amaren** (23); **haren amari** (14); **hire amaren** (17); **hire amari** (8); **neure amaren** (15); **nion amari** (35); **nire amarekin** (9); **nire amaren** (71); **nire amari** (24); **nuen amaren** (10); **zen amarekin** (12); **zen amaren** (31); **zion amaren** (8); **zion amari** (77); **zion gure amari** (22); **zioten amari** (11); **ziren amaren** (11); **zitzaion amari** (17); **zizkion amari** (8); **zuen amarekin** (8); **zuen amaren** (28); **zuen amari** (13); **zure amarekin** (11); **zure amaren** (27); **zure amari** (26)

---

amaberri ik **ama 3**.

---

amabi *iz* aguazila.

-Zer duk, motel? -itaundu zion Gipuzkoako Eskuadraren goi buruak, Okendo **amabi** ospetsuak. Edorta Jimenez

---

amabirgina ik **ama 5**.

---

amabirjin ik **ama 6**.

---

amabirjin ik **ama 6**.

---

amabirjina **1** ik **birjina 6**.

2 irud/hed ik **birjina 7**.

Atelier guztietako takilla guztietako egutegi guztietako titiduna naiz, itsaso guztietako bafore guztietako kamarote guztietako **amabirjina** linburra naiz, beldurra ematen dizue larrutan nirekin? Koldo Izagirre

Amabirjina bat ematen zuela esan zionean, egia-egiatan zioen. Fernando Morillo

-Nik kaka egingo diat **amabirjinaren** altzoan, umeak huraxe jan dezan! Inazio Mujika Iraola

---

amabitxi **1** *iz* bataiatzen den haurrarentzat, besoetan daraman emakumezkoa, ama besoetakoa, ama pontekoa. ik **aitabitxi**.

Gurasoek espero zuten, **amabitxiaren** aldetik semearen etorkizuna hornitzeko zerbait, eta horregatik, haurrari aitabitxiaren izena emateko bakarrik agintzen duen aztura alboraturik, paraninfa horren izena gehitu zitzaion, mutilentzako adieran, hori bai. Jon Alonso

Hainbesteko jakinduria horrek ez zituen aberastu, eta, dakigunez, ez zen hori izan, ezta ere, Benvinda **amabitxiaren** lanturua jotako ondasunen jatorria, Jainkoak barka diezaiola, ahal badu. Jon Alonso

Esan zuen popeak ez zukeela amore emango berak beldurtu ez balu esanez salatu egingo zuela Mikhail dendajabea **amabitxiarekin** ezkondu zuelako. Jose Morales

Ikusten zuen zeinen huskeria dotoreak eskuratzen zituzten aduanako funtzionarioek atzerritik eta nolako portzelanak eta batistak bidaltzen zizkieten **amabitxiei**, izebei eta arrebei. Jose Morales

2 *irud/hed (konfirmazioan, ezkontzetan eta kidekoetan)*

Handik hiru hilabetera ezkondu ziren, Bob aitabitxi izan zen eta ni **amabitxi**, eta, haiek Hurricanen itsasoratu eta Karibera zihoazen bitartean, Bob eta biok Amaralinara joan ginen hark errentan hartutako uda-etxe batera, gorputzari atsegin ematera. Karlos Zabala

3 ***aita-amabitxi*** *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Euskaldunen ezkontzetan ugari dira euskal abizeneko lekukoak, edo umeen bataioetan euskal abizeneko **aita-amabitxiak** azaltzen dira. ETC-literatura, saiakera

Jesusek atera zuen pontetik, eta, Juanito neba bekaiztu ez zedin, legez ez, baina izatez haren **aita-amabitxi** ere egin ziren. ETC-literatura, saiakera

Aita-amabitxiek euren haur besoetakoei 'morrokoteak' emango dizkiete Pazko igandean. ETC-prentsa

Coruñara itzulita, ene etxea **aita-amabitxiena** izan zen. ETC-prentsa

4 ***aitabitxi-amabitxi*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Bataioak orain baino sarriagotan ospatzen zirenean, umeon igande goizetako jolasa izaten zen bataio irteerara joan eta haur bataiatu berriaren guraso eta **aitabitxi-amabitxiek** botatzen zituzten goxoki eta txanponak biltzea. ETC-prentsa

Besteak beste, Albert Goienetxe eta Urkixo anderea egon ziren **aitabitxi-amabitxien** artean; Jauffret Baionako gotzainak bataiatu zituen. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amable *izond irud/hed* adeitsua, amultsua.

Gustatu egin zitzaion hiztegi entziklopediko hura, hala ere: liburu **amablea** zen eta itsasbelar itxura zeukan. Unai Elorriaga

---

amaetxe *iz* amentzako etxea.

Amaetxe bat ireki dute; hobeto esan, **amaetxe** itxura duen zerbait. Felipe Juaristi

---

amagabeko *izlag* amarik ez duena.

Horixe besterik ez zen behar, eta ez zuen hori apurtuko **amagabeko** neskatila batek. Anton Garikano

---

amagai *iz* ama izango den andrea.

Jakitea beti komenigarri dela pentsatzen dutenen taldekoa naizenez, ikastaro horien aldeko naiz, nahiz ama izan aurreko ikastaroetan ezer gutxi ikasi, **amagai** gehienontzat gai nagusi bat izaten delako gainerako guztiak itzalean uzten dituena: ama bihurtuko garen eguna, momentua. Arantxa Iturbe

---

amagiarreba ik **amaginarreba**.

---

amaginarreba *(orobat **amagiarreba** g.er.)* **1** *iz* senarraren ama emaztearekiko, edo emaztearen ama senarrarekiko.

Ondoren, Pedroren etxera joan zen Jesus, eta haren **amaginarreba** oheratua aurkitu zuen sukarrez. Elizen arteko biblia

Eguzkitako betaurrekoak nituela joan behar izan nuen Artaxonara **amaginarreba** ehortzi genuen egunean. Ramon Saizarbitoria

Ez nuen denbora alferrik galdu oroitarazten bere **amaginarreba** ez zela munduko amatxirik ilobazaleena eta, beraz, joan-etorrietara behartuko ninduela herritik hirira eta hiritik herrira. Aingeru Epaltza

Erantzun zidan nahiago zukeela aitarentzat hilobi duin bat lortu, ama -nire **amaginarreba**, alegia- erabat tristatzen zuelako betiko atsedenean hobi komunean auskalo zeintzuekin zegoela jakiteak. Ramon Saizarbitoria

Ez zeukanez senarrik, semerik eta **amaginarrebarik**, Sethek eta bere alaba geldoak hantxe bizi beharra zeukaten bakar-bakarrik, nola edo hala. Anton Garikano

Semea aitarengandik, alaba amarengandik, eta erraina **amaginarrebarengandik** banatzera etorri naiz. Joan Mari Lekuona

Suhia eta **amaginarreba** batzuetan ez dira horren ongi konpontzen. Gotzon Garate

Lolak **amaginarrebari** uzten zion haurra, eta senarra eta biak eskiatzera joaten ziren. Fernando Rey

-Etortzea asko du -erantzun zion Luluk-; esango diot alfer hutsa dela, eta hobe lukeela lan egin eta ez **amaginarrebaren** kontura bizi.Zama izugarria gertatzen zitzaizkion **amaginarreba** eta aitaginarrebaren atxikimendua eta umea etorriko zelako itxaropena. Josu Zabaleta

Haurrak aitaren etxean bizi ohi direnez, edo han bizi direla jotzen denez -eta, beraz, suhia **amaginarrebarekin**, aitaginarreba errainarekin edo emaztearen alabarekin-, haien arteko ezkontza lege naturalak debekatzen du. Iñaki Iñurrieta

Madarikatua **amaginarrebarekin** oheratzen dena! Elizen arteko biblia

-Jakin dut zenbat lan hartu duzun **amaginarrebagatik**, senarra galdu eta gero: nola, gurasoak eta sorterria utzita, ezagutzen ez zenuen herri batera etorri zaren. Jose Antonio Mujika

Aitortu nuen Portugaleko Errege eta Erregina Jaun Andere ospetsuek, beren kartsutasunaz, zuhurtziaz, fedegabeen aurkako gerla eta bake lanetan, deneri nagusi zaizkien gure Erregeren aita eta **amaginarreben** baimena ukan orduko eskaini zizkidaten horiek oro, nik merezi nuen baino gehiago zirela. Piarres Xarriton

Ikusi nahi zuelako nor zegoen estazioan alargunaren zain: gurasoak, **amaginarreba**, ahizparen bat, neba. Unai Elorriaga

Presoen arreba edo ahizpa, alaba, ama, neska-lagun, iloba, emazte, izeba, amona, **amaginarreba**, errain, lagun...· Egoki zaindu zituen aita-**amaginarrebak** beren zahartzaroan eta Mediako Ekbatanan ehortzi. Jokin Urain

2 *aita-amaginarreba*

Eta zer esan, gainontzeko harremanei buruz, neba-arrebak, **aita-amaginarrebak** eta suhi-errainak, eta hainbat ahaide eta kideren arteko elkarloturari buruz, guraso eta seme-alaben maitasuna bera ere, elkar maite ez dutenean, zalantzan badago eta asmoa susmopean? Imanol Unzurrunzaga

Axola handiz zaindu zituen **aita-amaginarrebak** bere zahartzaroan, eta Ekbatanan ehortzi zituen. Jose Antonio Mujika

Zazpigarrenekorik, gure Erregeren burasoek manaturik Coimbrara joan nintzelarik, haren **aita-amaginarrebak**, gure Portugaleko Jaun Andere Errege Erreginak 16 bat urtez zerbitzatu ditut. Piarres Xarriton

Egoki zaindu zituen **aita-amaginarrebak** beren zahartzaroan eta Mediako Ekbatanan ehortzi. Bera izan zen Raguelen ondasunen oinordeko, bai eta bere aita Tobitenena ere. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere amaginarreba** (9); **jesusek simonen amaginarreba** (3); **nire amaginarreba** (8); **simonen amaginarreba sendatu** (3); **zen amaginarreba** (3); **zure amaginarreba** (3)
> **aita amaginarrebak** (4); **nire amaginarrebak** (4); **zuen amaginarrebak** (3)
> **bere amaginarrebaren** (5); **nire amaginarrebaren** (4)
> **nire amaginarrebari** (3)

---

amaginarrebakide *iz* norbaiten semearen edo alabaren amaginarreba.

-Eta zer moduz dago nire **amaginarrebakidea**? Iban Zaldua

-Amaginarrebakide ohia -zehaztu dut-. Iban Zaldua

---

amagoi *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz adkor* amona.

Gurean, gainera, urte erdiko **amagoi** urdin sinbolikoa da maiatza, poeten arabera. ETC-prentsa

---

amai *iz* bukaera. ik **amaiera**.

"Ea, ea, ea, piztien gizona, piztien laguna!" eta bezperako garrasi berak hasi ziren egiten, **amai** gabeko aldaerak eginez. Josu Zabaleta

Aurrera jarraitzen uzten dio, fereka bakoitzak **amai** jakinera hurbiltzen duela jakinda. Iñaki Iñurrieta

Eta bidezko da, zeren, gizakiek euren nahigabeen **amai** ziurrik ikusiko balute, nolabaiteko arrazoia bailukete erlijioei eta aztien mehatxuei aurre egiteko. Xabier Amuriza

Baina, emankortasunak ere **amairen** bat behar zuenez gero, utzi egin zion, urteen kargak agorturiko emakumeak bezala. Xabier Amuriza

2005a, urterik beroena XIX. mende **amaitik**. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amaia arte** (3)

---

amaiarazi, amaiaraz(i), amaiarazten *(orobat **amaitarazi** g.er.)* du *ad* amaitzera behartu.

Haren txanda heldu zenean, gainerako fraideek omenaldia **amaiarazi** egin nahi izan zuten, malabarista izandako fraideak ez baitzeukan esateko ezer garrantzizkorik, eta komentuaren izen ona zikindu egin zezakeen agian. Xabier Aranburu

Agian bere sufrimendua **amaiarazi** beharko dogu. Iñaki Mendiguren

Hortxe **amaiarazi** beharko zuen guztia. Oskar Arana

Atzerriko nazioen artean sakabanatuko zaitut eta herrialdeen artean barreiatuko; zure jokabide lotsagarria **amaiaraziko** dut. Elizen arteko biblia

Hau diot nik, Jainko Jaunak: Babiloniako errege Nabukodonosorren bitartez **amaiaraziko** dut Egiptoren harropuzkeria. Elizen arteko biblia

Banekien nirekin partekatu nahi zituela neuzkan kezka eta nahigabe guztiak, baina ez zidan ezer esaten, eta azkenik ahoa zabaltzen zuenean bazirudien hilabete osoak emanak genituela gai berari buruz kartsuki eztabaidatzen, harik eta Nunuk esaldi labur batez gure ika-mika **amaiarazten** zuen arte. Ander Irizar

Bai baitaki begirada bat nahikoa lukeela, edo eskuko hatz bat altxatzea, bestea isilarazi, deuseztatuta alde egitera behartu eta ikuskizuna **amaiarazteko**. Ander Irizar

---

amaibako *izlag* amairik ez duena, amaigabekoa.

Etsipenean sartu zen, **amaibako** tunelean bezala. Gotzon Garate

Nor eta hi, bizidun eta ikustun izan arren, bizia ia hila duana, denborarik gehiena lotan galtzen, itzarrik zurrungatzen eta amesgintzari uzten ez dioana, arima izu funtsgabez larriturik darabilkana eta sarritan zer gaitz daukaan ere igarri ezin duana, **amaibako** gaitzek sarritan gizajo hori, horditurik, nondinahi estutzen hautenean eta gogo zalantzatiz, jitoan flotatuz, alderrai habilenean? Xabier Amuriza

Etorbidea antzeman zuen lehendabizi -gauez bezain zaratatsu eta gainezka-, haren osteko hondartza **amaibakoa** gero, eta goiznabarraren argi ubelak urdintzen zuen itsasoa jarraian. Xabier Montoia

Halaxe, gure ondoko itsasotik, edo barruko ordoki lehorretik, haize-bolada bakoitzak laino eta hodeiak, aleka edo sokaka, fronte eta frontexkatan artaldeka pilatuta, hortxe datoz, eta batzuetan denak segido, errosario **amaibakoan**. Pello Zabala

---

amaiburu *iz* amaieraren burua.

Alargun eta emazurtz sentitzen nintzen, eta banuen amets-asmoa karbono-atomo baten saga idazteko, jendeei ulertarazteko fotosintesi klorofilikoaren poesia bikain bezain -kimikarientzat izan ezik- gordea: eta idatzi ere idatzi dut ipuin hori, handik urte askora, horixe baita liburu honen **amaiburuko** historia. Juan Garzia

---

amaidun *izond* amaiera duena.

Jainkoa (ustez, beretzat ez zen mundua baino izango) ez dela ez **amaiduna**, ezta amaigabea ere, ez dagoela ez higiduran, ezta geldi ere, beste gauzen antzarik ez duela, baina antzagabea ere ez dela baieztatzen zuen. Ibon Uribarri

Ez da beharrezkoa espazioaren eta denboraren begiespen-era gizakien sentimenera zedarriztatzea; baliteke izaki pentsatzaile **amaidun** orok honetan halabeharrez gizakiarekin bat egin behar izatea (nahiz eta hau ezin dugun erabaki), baina ez dio sentimen izateari uzten orokortasun horregatik. Ibon Uribarri

---

amaidunki *adlag* era amaidunean.

Eta honek amaigabeki determinaturik eman ezin duenez, ezta orobat **amaidunki** determinaturik ere (absolutuki mugatua), hortik argi gertatzen da guk munduaren handitasuna ez amaiduntzat ezta amaigabetzat ere ezin onar dezakegula, zeren itzulerak (honen bidez errepresentatzen baita hura) bietako bat ere ez baitu baimentzen. Ibon Uribarri

---

amaiegun *iz* amaieraren eguna.

Arratsaldean bilduko naiz irratiko zuzendariarekin eta, beste ordainketa bat jasotzeaz gainera, kanpainaren **amaieguna** ezarriko dugu. Iñaki Zabaleta

---

amaiera 1 *iz* amaitzea; zerbait amaitzen den unea edo modua; zerbaiten azken zatia. ik**bukaera**.

Hausnarketak ez ziren inoiz izaten, inoiz ez, atseginak; eta, ameskeriaren **amaieran**, lehen kausak, begien bistatik galdu ez ezik, iritsia izaten zuen gaitzaren ezaugarri nagusia zen interes naturaz gaindiko eta gehiegizko hori. Koro Navarro

Kalearen **amaieran**, atzera begiratu nuen. Juan Kruz Igerabide

Goiz batean **amaiera** iritsi zitzaidala sentitu nuen. Koro Navarro

Torturaldiak **amaierarik** ez zuen, harik eta ama, jaikitzeko tenorea genuela eta, gelaratzen zitzaigun arte. Aingeru Epaltza

Amaieran, txalo egin zioten eta, jaitsi zenean, bide zabala utzi ere. Koldo Biguri

Hirian baino lasaiago bazegoen ere, azken gutunetan lehengusuak idatzitako hitz gero eta ausartago haiek zertara zeramaten, **amaiera** non izan zezaketen jakin-mina piztua zuten Macarenarengan. Joxemari Urteaga

Grabazioa ari da **amaierara** iristen. Arantxa Iturbe

Perla bilatzaileak itsaso mirailean nola, halaxe murgiltzen da laguna euskaraz egin diren hiztegi guztietan, egunaren **amaieran**, moilan, nire oinetara uzteko. Iñigo Aranbarri

Historiaren **amaiera** metaforaz konta daiteke soilik, zeruetako erreinuan gertatzen baita, eta han ez baita denborarik. Juan Garzia

Gauza duk unibertsoa materia kopuru jakin batez osatua dagoela, hasiera bat izan zuela big-bangean eta **amaiera** bat izanen duela noizbait. Harkaitz Cano

"Herio denbora duk, banakotasunaren eta bereizketaren denbora, **amaieraren** ardatzari koska estutzen ari den denbora abstraktua (--...) Anjel Lertxundi

Erabat hondaturik zegoela zirudien, baina gauaren **amaiera** heldu aurretik etengabeko jardueraren hotsak heldu zitzaizkien bertatik: mailuen kolpeak, paleten kaskadak eta gurpilen kirrikak. Agustin Otsoa

Ghettoko bizargin hura, Hynkelen bikia zena, eta, azkenean, filmaren **amaieran**, bera ordezkatzen zuena. Harkaitz Cano

Atuna zein berdela, arrantzaldia ahitzen zenean, **amaieraren** ikur eta ospakizun gisa, beste doinu bat paratu ohi zuen tabernariak, doinu parea hobeto esanda: "Eusko Gudariak" eta "Internazionala" elkarren segidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Denborak irentsi egiten gaitu, gure **amaierarantz** bultzatzen gaituen bitartean. Jon Muñoz

Setioaren **amaiera** zen eta hura ospatu beharra zegoen. Aingeru Epaltza

Agenda-21ean heldu egiten zaie XX. mendearen **amaierako** eta XXI. mendearen hasierako arazo premia-premiazkoei. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Niri, berriz, ustezko **amaieraren** ostekoa eta - batez ere - aurrekoa interesatzen zaizkit gehienik: erabili diren arrazoibideak, esaterako. Joxerra Garzia

Kontakizunaren **amaiera** aldera Luisen aurpegiak hartu zuen itxura ez zitzaizun gustatu. Lourdes Oñederra

Iritsiko ote zara **amaieraraino**? Felipe Juaristi

Borj Boun frantses kaserna bat bazen: sufrikarioen **amaiera** zena? Itxaro Borda

- Hori ez da baina historia baten **amaiera** edo azalpena ere! Josu Zabaleta

Eta berak eskatu bezala, ipuinaren **amaiera** kontatzeari ekin nion. Edorta Jimenez

Maitasunaren **amaieraz** idatzi beharko zenuke. Lourdes Oñederra

-Istorio horren **amaiera** jakin nahi diagu, Tristan. Aritz Gorrotxategi

-Gauean gertatu zen onena, ospakizun luze bezain xarmagarriaren **amaiera** aldera. Jon Arretxe

Eta azkenik, sei hilabeteko bidearen **amaieran**, eguzkia baino maiteagoa zuen emakumearen sorterria jo zuen. Felipe Juaristi

Kontaketaren **amaiera** isilune astun baten abiapuntua izan zen. Migel Angel Mintegi

-Inork ez du etxerik bilatzen urte-sasoi honetan; diruaren kolorea ikusteko, neguaren **amaiera** arte itxaron behar, kimTx'i poteak lurpetik atera arte. Juan Kruz Igerabide

Amaierarik gabeko katea zirudien; kate maila bakoitzak beste bat zekarren atzetik, egunak gaua bezala. Imanol Zurutuza

Bat-batean, beroaren ziztada belarrietan sentituz, Inaxiok ulertu du istorio honek bi **amaiera** izan ditzakeela. Pako Aristi

Urte-**amaiera** aldera edo. Xabier Mendiguren Elizegi

Betiko eskailerak igo, eta korridorearen **amaieran** argi ahul baten azpian aurkitu du atea. Javi Cillero

Han parean gelditzen da trena, trenbidearen **amaiera** baita. Fernando Rey

Nola bukatu zen idilio hura? -Josebak ongi zekien **amaiera** baina berriz galdetu zion. Iñaki Zabaleta

Kalbarioa bukatu zelarik, partidaren **amaieran**, bere aita zen lekura begiratzera ausartu zen Mikel. Ramuntxo Etxeberri

Azken uztaia lepoan zuelarik, farolaren enborraren **amaiera** atzeman zuen bizkarrean. Koldo Izagirre

Lurraren **amaiera**, zergatik? Joxe Austin Arrieta

Epearen **amaieraren** bezperan, Artur Ginebrari mintzatu zitzaion: Juan Kruz Igerabide

Goiz hartako bertsoñoak, ordea, benetako maitasun istorio baten **amaiera** kontatu nahi zuela ematen zuen, emakume kantariaren begiei zerien negar benetakoak eta ahots ilun apalak ere ez zuen besterik adierazten. Anjel Lertxundi

Plazaren **amaierako** balkoi zabalera hurbildurik, luzaz egon nintzen portura begira, aurrez aurre neuzkan ontzietatik zein zen gerraontzi eta zein merkataritzakoa erabakitzen. Anjel Lertxundi

Arropa garbiak aurkituko dituzue tunelaren **amaieran**, baina bakarrik moldatu beharko duzue han, ekintza hau inoren laguntzarik gabe burutu diat, ez zagok logistikarik kanpoan. Koldo Izagirre

Askatasunak behartu zuen ETAren hasiera, askatasunak behartu du bere **amaiera**. Joseba Zulaika

Behatzek ordea, bazuten **amaiera** . Xabier Mendiguren Elizegi

Emakumeen aldizkariek kirurgialari estetikoen helbideak eskaintzen zituzten, kasu xarmantenetan adeitsu portatzen zirela adieraziz, baina nik ez nuen berriz **amaierarik** gabeko istoriotan abiatu nahi. Joxan Elosegi

Mingarria bezain ederra izan zen gure harremanaren **amaiera** . Juan Kruz Igerabide

Tira, pentsa dezagun **amaiera** dela. Julen Gabiria

Edonola ere, estrategia desberdin haien emaitza berdina izaten zen: gauaren **amaieran** mozkortuta itzultzen ziren biak etxera, eta umore txarrez; hurrengo eguneko institutuko lanean pentsatuz Floren; agian estrategia aldatzea komeni zitzaiola esanez Santi. Jon Arretxe

Nire eskua berriz ixtera zihoala, haren burua ikusi dut: **amaiera** baten ebidentzia eta premia zeuzkan. Monika Etxebarria

Misterioen **amaierak** errutinaren madarikazioa zekarren. Fernando Morillo

Barkatu, irakurle gazte, **amaierarekin** hasi nahi dut, beldur bainaiz biak indartsu hasi eta erdi hebainduak ez ote garen. Pello Salaburu

Utzi -erantzun dio azkar batean, ezohiko egoera horri **amaiera** jarri nahian-edo-. Jokin Muñoz

2 (izenondoekin)

Amaiera izugarria da eta gelditzen den zaporeaz, berriz, ez dizut ezer esango, norberak dastatzea merezi baitu.. Pablo Sastre

Ez da hain **amaiera** eskasa Belle Reverentzat: paper pila txiki bihurtuta, zure atzapar handien artean! Xabier Paya

Ana Morenaren **amaiera** gaiztoaren ondoren, bareturik zeuden animoak, nonbait. Karlos Linazasoro

Gure herri hau ez da noski Hollywood, baina aldian behin **amaiera** zoriontsua izaten dute ipuinek hemen ere. Joxerra Garzia

Gero egindako mota bereko ahalegin guztiek Erdi Aroko sintesiaren batasuna ziurtatzen zuen **amaiera** trazendentea ordeztu baino ez zuten egin [...] Iñaki Mendiguren

Ez zuen **amaiera** onik izan, gizagaixoa, Burgosko kartzelan labankatu zuten amodio kontu batengatik. Javi Cillero

Bai **amaiera** harrigarria, ezta? Alberto Ladron Arana

Bi ibaiertzetako jendea, jentilaren **amaiera** lasterra sumatuz, erne jarri zen labar garaienetatik zelatan, eta handik ikusi zuten jentilaren azkena. Pako Aristi

Haiekin batera gainerako guztiak, gizonak herriko tabernan festari **amaiera** itxurosoa ematekotan, emakumeak, bakoitza bere etxera, eguraldiaren gozotasunaz bustirik, beren neke eta lanak ahaztekotan. Felipe Juaristi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Joan den ostiralean Antzoki Juduan egin genuen ikasturtearen **amaiera** ospakizuna oso ongi atera zen. Josu Zabaleta

Atzo arte ez nekien **amaiera** -geltoki batean sortutako familiak edo pertsonak zeudenik ere. Antton Olano

Gero, nekatzen zenean, **amaiera** hitzetara jo, "hala ez bazan sar nadila kalabazan", eta beste bati ematen zion txanda. Bernardo Atxaga

Goiko adibideok argigarri izan daitezkeelako ekarri ditugu hona, baina aurrerantzean, oihartzunez jarduten dugunean, ez bertso lerroen ez atsotitzetako hemistikioen **amaiera** hitzak ez ditugu aintzat hartuko. Iñaki Arranz

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etsita eta minduta zen etapa **amaieran** Euskaltel-Euskadiko Iban Mayo. Berria - Kirola

Bitxikeria gisa edo ez, aurreko denboraldi **amaieran** Alex Ferguson Manchester Unitedeko entrenatzaileak esana ere hor dago. Berria - Kirola

Aste **amaieran** maisuak eraztunaren galde egiten du eta batak besteari eman dioten haur guztiei galdetzen die. Joxerra Garzia

Zinez esan dezaket Lizarrak liluratu egin ninduela uda **amaiera** hartan. Txillardegi

Lajos itzuli zen eguna irail **amaierako** igande bat zen. Ander Irizar

1980ko bertsolari txapelketan bertsolariei jarri zitzaien bertso-**amaiera** hura, adibidez, entimema da: "arrazoirik ez dugu, gutxi garelako". Joxerra Garzia

Errekartetik Oria ibairainoko tarte guztia zelaia zen garai batean, nik neuk horren akordu oso lanbrotsua badut ere; 60ko hamarraldi **amaieran** hasi ziren etxeak egiten, gaur egungo Errekarte kalea osatzen dutenak hain zuzen ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Abiatu zenean BMWa kale **amaieran** zegoen, eta ezkerreko keinukaria pizturik zeraman, errepide nagusiranzko hiribidea hartzera zihoan seinale. Migel Angel Mintegi

Nire ikastetxeko lagun taldeak hiriburuan ikasturte **amaierako** afaria egitea erabaki zuen. Aitor Arana

Baina bada sentipen bat gerra **amaiera** honetan beste guztiei gaina hartzen diena. Josu Zabaleta

Handik ikusten zuen herriko beheko parte osoa eta herri **amaierako** zuhaitzak eta mendia eta baso txikia. Unai Elorriaga

Erdi Aro **amaiera** arte, jende arruntak apenas egiten zuen bere odolekoen segimendurik; nahaste eder batean bizi ziren orduan, batez ere, Trentoko Kontzilioak familiaren segimendua, apellidoak eta beste diziplinatu zituen arte. Patziku Perurena

Nire oparitxoa hil **amaieran** jasoko duzu, justu samar nabil orain eta. Eskarne Mujika

Urte **amaiera** gero eta gertuago zegoen, eta argitaletxekoak urduri jartzen hasi ziren. Iban Zaldua

Inorekin ligatzen ez zuela denbora luzea zela pentsatu, eta bidaia **amaieran** hurbiltzea erabaki zuen. Sonia Gonzalez

5 ***amaiera eman***

2727 dekretua sinatuz, Petain mariskalak bost departamentu bretoien lurralde batasunari **amaiera eman** zion. Berria - Mundua

Etxetik kanpoko boladari **amaiera eman** gura dio behingoz Athleticek. Berria - Kirola

Narrazioei eta ipuinei **amaiera emateko** era egokia izan daitezke suteak. Harkaitz Cano

Horratx, biraorik ere gabe, **amaiera emango** diot. Juan Garzia

Izugarrikerien pentsamenduak sortzen zitzaizkion: etxe hura suntsitu, bere bizitzari **amaiera eman** . Ibon Uribarri

Hala bada, sekreturik sekretu eta aitorpenik aitorpen, **amaiera eman** zion Josebak bere historia ikaragarriari. Xabier Montoia

Nire aldetik, **amaiera eman** diot mundu burges eta eskolatuan sartu nintzenean haren atalasean utzi behar izan nuen herentzia eguneratzeari. Joseba Urteaga

Gaueko hamar eta erdiak iritsitakoan, aukeratu modako pieza bat - Casatschok, 1970eko uda hartan - eta **amaiera ematen** nion dantzaldiari. Bernardo Atxaga

Burezurreko zati bat, baraila, orangutan batena zen; hortz-haginak tresneria modernoa erabiliz ipini zituzten, eta, lanari **amaiera eman** eta adinaren kutsua eransteko, tenperatura altuan tindatu zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jendarmeak etxe batera sartu dira, bikote baten itxialdiari **amaiera emateko** . Berria - Euskal Herria

Alabaina, asmo horiek ere - sobera goiztiarrak, badakit - usteldu behar: neure egitekoari **amaiera emateko** hiru lerro baizik falta ez nituela jakinarazi zidan lagunekin zinemara joatekoa zela. Aingeru Epaltza

Horrexegatik da, hain zuzen, barregarria, eguneroko albistegiei honako lelo honekin **amaiera ematen** dien telebistako aurkezlearena: "Horrela izan dira gaur gauzak, eta horrela kontatu dizkizuegu guk". Joxerra Garzia

Erromesak bagina, zoriontsu izateko aberriminez, erromesaldiaren zoritxarrari **amaiera eman** eta aberrira itzultzeko irrikatan egongo ginateke; baina horretarako ezinbestekoa genuke ibilgailua lehorrerako nahiz itsasorako, hartaz baliatuz aberrira iritsi eta zoriontsu bizi ahal izateko. Imanol Unzurrunzaga

Eskandalua gorabehera, Harryk bere buruari ekarri zion desohorea gorabehera, ez zitzaion behin ere burutik igaro ezkontzari **amaiera ematerik** . Oskar Arana

Europan, 1879ko alemaniar muga-sarien legeak protekzionismoaren aro berri bat markatu zuen, muga-sariak murriztu ziren hiru hamarraldiri **amaiera emanez** . Koro Navarro

Harik eta bozgorailu madarikatuak, hormetako goroldioa bera larrituz, bizitza arrasto hari **amaiera ematen** dion arte, etengabeko heriotza gogora ekarriz, etengabeko heriotza gure egunetara, gure istantetara ekarriz. Lander Garro

6 ***foruen amaiera***

Milaka lagunek parte hartu zuten atzo **foruen amaieraren** urteurrena gogoratzeko manifestazioan, Accio Cultural del Pais Valencia elkarteak egindako deialdiari jarraiki. Berria - Mundua

7 ***ikasturte amaierako bidaia***

- Barkatu, baina ez dakit nor zaren, benetan... Tentsioa sentitu zenuen bazenekielako ni nintzela, ez zinela tronpatu; ni nintzen zure lagun mina, **ikasturte amaierako bidaiatik** karrerako hirugarren mailara arte. Eider Rodriguez

8 *munduaren amaiera*

-Sekula, **munduaren amaiera** arte, ez dira hona iritsiko Simbelmynë-loreak -murmurikatu zuen. Agustin Otsoa

Ez dugu Apokalipsian eta Azken Judizioan sinesten; ez dugu Igokundean sinesten, ez eta **munduaren amaieran** ere. Oskar Arana

Lurpean ari nintzen lanean Dowlais-en, eta **munduaren amaiera** erori zen nire gainean. Koro Navarro

Egia aurkitzea du xede bakarra Filosofiak, zeina baita giza adimenaren antzinako zereginik zaharrena eta **munduaren amaiera** arte gero eta dedikazio handiagoz etorkizunean ere hala izateko proportzio handia duena. Xabier Olarra

Ez ote zuen Keverkoarekin zerikusia **munduaren amaiera** iragarri zuen Rabanne jostun preziatuak? Nori egin behar zaio alkoholaren proba, akusazioari edo akusatuei? Eta poligrafoarena? Berria - Mundua

Bada ostera gogoratuko ez dudan Verlainen poema bat,/Bada kale hurbil bat nire pausoei ukatua dagoena,/Bada ispilu bat azken aldiz ikusi nauena,/Bada **munduaren amaiera** arte itxi dudan ate bat. Bernardo Atxaga

-Munduaren amaiera da hau! Josu Zabaleta

-Eraman nazazu oso urrutira, baita **munduaren amaieraraino** ere! Josetxo Azkona

Rimbaud huen hik gogoko, baina ez haiz sekula Paristik atera; nik, berriz, Verlaine, baina neu joan nauk **munduaren amaieraraino**. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**
>
> **amaiera aldean** (11); **amaiera aldera** (75); **amaiera arte** (129); **amaiera arte ez** (9); **amaiera baino** (13); **amaiera baino lehen** (8); **amaiera bat** (19); **amaiera bitartean** (20); **amaiera da** (14); **amaiera ekarri** (8); **amaiera ekarriko** (13); **amaiera ekitaldia** (13); **amaiera ekitaldian** (17); **amaiera eman** (77); **amaiera eman eta** (12); **amaiera eman zion** (16); **amaiera eman zioten** (8); **amaiera emanda** (8); **amaiera emanez** (12); **amaiera emango** (21); **amaiera ematea** (21); **amaiera emateko** (108); **amaiera ematen** (22); **amaiera ere** (15); **amaiera eta** (33); **amaiera ez** (13); **amaiera gertu** (12); **amaiera gisa** (12); **amaiera honetan** (13); **amaiera hori** (8); **amaiera iragarri** (8); **amaiera iritsi** (10); **amaiera izan** (11); **amaiera izango** (14); **amaiera jarri** (16); **amaiera jarriko** (7); **amaiera jartzeko** (7); **amaiera ona** (15); **amaiera zen** (10); **amaiera zoriontsua** (8); **baten amaiera** (52); **bati amaiera** (9); **behin betiko amaiera** (8); **bere amaiera** (9); **betiko amaiera** (10); **bolada txarrari amaiera** (7); **da amaiera** (14); **denboraldi amaiera** (29); **denboraldi amaiera arte** (7); **dio amaiera** (17); **diote amaiera** (10); **du amaiera** (16); **eman zion amaiera** (15); **emango dio amaiera** (11); **emango diote amaiera** (9); **eta amaiera** (78); **etaren amaiera** (15); **gatazkaren amaiera** (8); **gatazkari amaiera** (11); **gerraren amaiera** (13); **grebari amaiera** (7); **hamarkadaren amaiera** (9); **hamarraldiaren amaiera** (7); **hasiera eta amaiera** (11); **hilaren amaiera** (7); **honen amaiera** (9); **honi amaiera** (14); **horri amaiera** (13); **horri amaiera emateko** (7); **indarkeriaren amaiera** (22); **indarkeriari amaiera** (7); **krisiari amaiera** (8); **liga amaiera** (18); **mendearen amaiera** (17); **mendearen amaiera aldera** (8); **munduaren amaiera** (13); **partida amaiera** (9); **partidaren amaiera** (11); **prozesuaren amaiera** (8); **sasoi amaiera** (16); **sasoi amaiera arte** (8); **txarrari amaiera** (7); **urte amaiera** (22); **urtearen amaiera** (8); **zion amaiera** (16); **zuen amaiera** (11)
>
> **abenduaren amaieran** (7); **abuztuaren amaieran** (8); **agerraldiaren amaieran** (7); **amaieran baino** (8); **amaieran bukatzen** (8); **amaieran dago** (8); **amaieran edo** (24); **amaieran egin** (12); **amaieran egindako** (8); **amaieran egingo** (10); **amaieran ere** (15); **amaieran esan** (8); **amaieran espainiako** (7); **amaieran eta** (28); **amaieran hasi** (11); **amaieran hasiko** (7); **amaierara arte** (32); **amaierara iristeko** (7); **amaierara iristen** (8); **amaierara iritsi** (11); **amaierarako prest** (7); **apirilaren amaieran** (12); **aste amaieran** (17); **azaroaren amaieran** (10); **bakoitzaren amaieran** (13); **baten amaieran** (25); **bidearen amaieran** (7); **bileraren amaieran** (23); **den aste amaieran** (10); **denboraldi amaieran** (57); **denboraldiaren amaieran** (12); **egunaren amaieran** (10); **ekainaren amaieran** (9); **ekitaldiaren amaieran** (15); **eta amaieran** (38); **eta denboraldi amaieran** (8); **gerraren amaieran** (9); **guztien amaieran** (9); **hamarkadaren amaieran** (44); **haren amaieran** (11); **hasieratik amaierara** (8); **hil amaieran** (8); **hil honen amaieran** (8); **hilabete amaieran** (10); **hilaren amaieran** (19); **honen amaieran** (30); **honen amaierarako** (14); **horren amaieran** (12); **iazko urte amaieran** (8); **indarkeriaren amaierarako** (9); **kalearen amaieran** (9); **korridorearen amaieran** (8); **lehen zatiaren amaieran** (12); **liburuaren amaieran** (7); **liga amaieran** (7); **liga amaierarako** (8); **maiatzaren amaieran** (7); **manifestazioaren amaieran** (19); **martxoaren amaieran** (12); **mende amaieran** (21); **mendearen amaieran** (26); **otsailaren amaieran** (10); **partida amaieran** (19); **partidaren amaieran** (23); **prozesuaren amaieran** (7); **saioaren amaieran** (14); **sasoi amaieran** (31); **sasoiaren amaieran** (12); **uda amaieran** (12); **urriaren amaieran** (13); **urtarrilaren amaieran** (10); **urte amaieran** (107); **urte amaierarako** (39); **urtearen amaieran** (48); **urtearen amaierarako** (8); **uztailaren amaieran** (8); **zatiaren amaieran** (16); **zuen amaieran** (13)
>
> **amaieraren hasiera** (29); **amaieraren hasieran** (10); **amaierarik ez** (15); **amaierarik gabe** (8); **amaierarik gabeko** (35); **amaieraz geroztik** (11); **indarkeriaren amaieraren** (13)

---

amaiezin *(orobat **amaitezin** g.er.)* *izond* ezin amaituzkoa.

Hasieran hiljantzi **amaiezin** bat egiten aritu zen, Laertes zaharra hiltzen zenerako; egunez ehundu eta gauez askatu egiten zuen. Juan Kruz Igerabide

Oroitzen dudan hurrengoa Sandraren logela da, edo, hobeto esanda, Sandraren ohea, eta besarkada **amaiezin** hura, eta orduen joan-etorri epela. Iban Zaldua

Edo Ebroko bataila **amaiezin** hartan, Aragoiko eremu amaigabeetako lubakietan. Xabier Mendiguren Elizegi

Neurean jarraitu dut, burua flexo berriaren azpian makurtua, gutun **amaiezin** bat idazten Carmeni, Maritxu Arregiri buruz. Koldo Izagirre

Gutun luze bat idazten ari naiz komuneko paper **amaiezin** batean. Mikel Hernandez Abaitua

Isilune **amaiezin** bat etorri zen gero. Jon Muñoz

Segundo **amaiezin** batzuez itxaron nuen, belarria etxeko eta karrikako hots guztiei adi. Alberto Ladron Arana

Bat, bi, hiru minutu **amaiezin** barru irten zen. Joseba Sarrionandia

Zenbat aldiz ez ote zituen salmo baten gisa esan, denbora-pasa, Hiri Biribilera ekarri zuen bidaia-egun **amaiezinetan** zehar! Jon Muñoz

Tara osoa eta bertan bildutako guztiak elbarrituta geratu zirela zirudien, tarte **amaiezin** batean. Joanes Urkixo

773. urteko egun hartan hasi zen dena, bidaia **amaiezin** baten ondoren, Indietatik zetorren karabana mukuru zamatu bat Madinat al Salam, Bakearen Hiriko ateetan agertu zenean: Bagdaden, alegia. Jon Muñoz

Mundua aldatu egin da, noski, 1979tik; azalean, behintzat: orain zapalkuntza eta diktadurak askoz modu dotore eta itxurosoagoan aurkezten dizkigute, trantsizio garai **amaiezin** edo bozketekin jantzirik. Berria - Mundua

Egunak badoaz egunen ondotik, arrazoirik gabe, batuketa **amaiezin** eta monotonoan. Monika Etxebarria

Neskaren irribarre baketsuak, aurpegiko zurbiltasuna edertasun **amaiezin** batez distirarazten zuenak, Ada ere nire zorion berean partaide zela berresten zidan. Anjel Lertxundi

Emakumezko serioa zen, berrogeita hamar eta zenbait urtekoa, geldo eta **amaiezin** mintzatzen zena. Berrehun metroko ibilbidea baino ez zen izan, baina **amaiezina** iruditu zitzaidan. Karlos Zabala

Work-in-progress betierekoa, egundoko handiena, mugagabeena, orohartzaileena, eta horrexegatik **amaiezina**. Iñaki Iñurrieta

Fenomeno fonetikoa **amaiezina** eta kontaezina da, edozein ikur motaren gainean eragina izan dezakeen aldetik, ez baitago bereizketarik adjektibo, izen, hondarki eta abarren artean, haietan fenomenoa gauzatzeko unean. Isabel Arrigain

Dogmaren sorrerak mundu osora zabaldu zuen Von Trierri buruzko eztabaida antzu eta **amaiezina**: jenio garaikidea ala iruzurgile probokatzailea? Berria - Kultura

Hogeita hamasei hilabete **amaiezinak** bukatu eta bi emakumeak Graemetarren jauregira itzuli zirenean, mamu ibiltariak ziruditen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Harantz abiatuko zara, geroago eta iglutik urrunago, baina gelditu eta inguruari so egitean ez duzu inon topatuko ez punturik, ez iglurik, ez ezer elur lautada **amaiezinean**. Joseba Sarrionandia

Ez dakit nola, elkartu eta bakarrik geratu ginen, tabernaz tabernako zirkulu **amaiezinean**. Iban Zaldua

Mintzaldi luzeak, solas **amaiezinak**, platika betirakoak, ogirik gabeko eguna oinaztargi bihurtzen zuten diskurtso oparoak egiten zituzten berbalapikook, erretolika hanpatu, farfaila eta hutsalez. Jon Alonso

Gero pentsatu ohi nuen izenak izana ere badakarrela, eta ea Isidoraren pazientzia ez ote zen bere deiturak baino are luzeagoa, **amaiezinagoa**, gaur aurkitzen hain zaila den beste garai bateko pazientzia mota hartakoa. Pako Aristi

Nire pentsamenduak ere Wagnerren musikaren baitan mugitzen dituk, haren itsaso asaldatu, ilun, **amaiezinaren** baitan. Alberto Ladron Arana

Jarraitu, zifren segida **amaiezinari** jarraitu! Jon Muñoz

Eskuak aurpegi izerditsuaren alde banatara goratu zituen zabal-zabalik, porrot **amaiezinezko** keinu batean. Alberto Ladron Arana

Begira ea orain iritsi garen zuk **amaiezinekotzat** jotzen zenuen auzira. Imanol Unzurrunzaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **amaiezin bat** (7); **amaiezin batean** (4); **amaiezin baten** (4); **amaiezin eta** (3); **amaiezin hura** (3); **amaiezina da** (3); **amaiezina zen** (4); **bidaia amaiezin** (3); **eta amaiezina** (3)

---

amaiezintasun *iz* amaiezina denaren nolakotasuna.

Ez al duzu gogoan behin gainditua diskurtsoaren **amaiezintasuna** ahalezkoa egiten duten sistema amaituak (ezgai direnak, hala eta guztiz ere, bera oinarritzeko eta azaltzeko) aurkitzen dela transzendentzia baten arrastoa, edo gizakiaren lana? Xabier Arregi

---

amaigabe *(ETCn **5.197** agerraldi)* **1** *izond* amaitzen ez dena, amairik ez duena. ik **infinitu**.

Jainkoa (ustez, beretzat ez zen mundua baino izango) ez dela ez amaiduna, ezta **amaigabea** ere, ez dagoela ez higiduran, ezta geldi ere, beste gauzen antzarik ez duela, baina antzagabea ere ez dela. Ibon Uribarri

Izan ere, berak iraun egiten du, bere agerpenen ilarako itzulera **amaigabe** edo amaiduna ezeztatu arren. Ibon Uribarri

Hain zuzen, gutako bakoitzaren baitan, kimera-indar **amaigabe** bat dago, hots, oroimena, munstro beldurgarria. Juan Kruz Igerabide

Thoreau-ren lana da status quo-aren aurkako oldartze **amaigabe** bat, hemen bizitzeko modu berri bat bilatzeko borroka. Oskar Arana

Aldakak kulunkatzen zihardueN, Annari gaitzezpen-jasa **amaigabe** bat yiddish-ez botatzen zion bitartean. Lopez de Arana

Ateak ateen ondoren, korridore **amaigabe** batean. Fernando Morillo

Barneko etena, osotasun-eza, daukagunaren eta ez daukagunaren arteko distantzia gaindiezina, aseezin **amaigabe** hori da desiraren zauria. Joseba Zulaika

Ez du errieta egiten, zaratarik gabe joaten da jarioan, eta jarioan doan uraren mugimendu **amaigabe** horixe Ozeanoko olatu handiak baino beldurgarriagoa da niretzat. Josu Zabaleta

Bi gauza izaten nituen gogoan lasterketa **amaigabe** haiek egiten nituen bitartean. Pello Lizarralde

Gatazka **amaigabe** hauen borroka-lekuak, bada, Metafisika izena du. Ibon Uribarri

Oinez segi behar derrigorrean estepa **amaigabe** hartan aurrera. Karlos Zabala

Alferrik aipatuko nizueke Hans Castorren pasadizoren bat edo beste, ordea, are gutxiago zertan ziren solasaldi luze eta **amaigabe** haiek. Javi Cillero

Txirrista **amaigabe**, likits eta ilun batean behera jaistea bezala izan zen. Iñaki Mendiguren

Gor-mututasun hartan babesturik, ez al zion propio ihes egiten jakinduria **amaigabe** eta neurtezin hura lagun-hurkoari elkartasunez erakutsi beharrari? Karlos Linazasoro

Negarraldi lotua zen, irrintzi ñimiño batzuk besterik ez ziren entzuten arnasarik gabeko eten **amaigabe** batzuen ondoren. Josu Landa

Inoiz baino isilago dago etxe zurien ilara **amaigabea** eguzkipean. Javi Cillero

Korridoreak ez zuen amaierarik, eta ate itxien errenkada **amaigabea** zen. Jose Morales

Horrez gain, itxaropentsu izan daitezela eta gure berrikuntza hau ez dezatela errepresenta eta senti **amaigabea** den eta hilkorra denaren gainetik dagoen zerbait balitz bezala, zeren benetan errakuntza **amaigabe** baten amaiera eta bidezko bukaera baita. Ibon Uribarri

Gramatikak hiztunen jokabidea islatzen du, eurek ere perpaus berrien kopuru **amaigabea** sor eta uler dezaketelako, nor bere esperientzia mugatutik abiatuz. Itziar Laka

Trena igarotzean, garrasi egiten genuen, ahoa oso zabalik, haren irudi **amaigabea** erabat desagertzen zen arte. Juan Kruz Igerabide

Lerro edo angeluen zatigarritasun **amaigabea**. Ibon Uribarri

Ezin dut esan mundua lehenaldiari dagokionez edo espazioari dagokionez **amaigabea** denik. Ibon Uribarri

Esango balitz, ordea, mundua **amaigabea** edo amaiduna dela (ez-**amaigabea**), orduan biak faltsuak izan zitezkeen. irakatsia baitut lehenkien kopurua **amaigabea** eta espazioaren sakonera infinitua dela eta azaldua dut gorputzak zenbateko abiaduran hegatzen ziren eta nolako distantzia pentsagaitzak amen batean kurritzen zituzten. Ibon Uribarri

Aldaketa horien efektua neurtzeari ekiten badiogu, berehala ohartuko gara **amaigabea** eta kontaezina dela haien eragina, hau da, ezin aurreikus daitekeela non geratuko diren aldaketa horiek. Isabel Arrigain

Beldur naiz ez ote zaidan gaua basamortu **amaigabea** bihurtuko. Patxi Zubizarreta

Ondoren, bion isilaldi **amaigabea**. Joxe Austin Arrieta

Zerbaitegatik esana baitzeukan aspaldi Emile Chartierek, "denbora motz dela pentsatzen duenarentzako, eta **amaigabea**, aldiz, desiratzen duenarentzako". Patziku Perurena

2 (deklinabide kasuekin)

Poloniako lautada **amaigabean**. Felipe Juaristi

Urrunean, zeruertzeraino lehertutako olatuen atzeko marra **amaigabean**, ontzi beltz luze bat, brankan eta popan kubo zuri bana ageri. Txillardegi

Adigai bakoitza errepresentazio ahalgarri ezberdinen kopuru **amaigabean** barnebilduta dagoen errepresentazioa balitz bezala pentsatu behar da. Ibon Uribarri

Zentzu-bikoiztasunaren eta kontraesanen zirkulu **amaigabean** jiraka. Ibon Uribarri

Lurrak, emankor eta heze, atseden hartzen du zeruaren irribarre handiaren eta eguzkiaren erruki **amaigabearen** pean. Koro Navarro

Bigarrenak behinik behin kai txikiaren babesa eta aterpea uzten dizu, lehenengoak, berriz, itsas handira botatzen zaitu, merkatu globalaren espazio **amaigabera**, ahazturara. Berria - Kultura

Haren grafiak berak, (9), berriz atzera biziaren ziklo **amaigaberako** itzulera irudikatzen baitu. Patziku Perurena

Hain mugagabea zarenez, ez da zure baitatik sortuko pentsamendu **amaigaberik**? Jose Morales

3 (pluralean)

Eztabaida **amaigabeak** izan zituzten hainbat hilabetez: antolamendu arazoak, helburu eta baliabide auziak, estrategiari eta etorkizuneko gobernuari buruzko kontuak.Tropelean eta bultzaka sartzen ziren saltokietan, mukuru betetzen zituzten dendak, eta kotxeek ilara **amaigabeak** osatzen zituzten, hain ziren ugariak. Karlos Zabala

Merkatuko bazterretan berriketa **amaigabeak** izan zituen Saget andereñoarekin, Lecœur andrearekin eta La Sarrietterekin. Karlos Zabala

Zure urteak **amaigabeak** direlako (Sal. 101, 28), zure urteak egungo eguna dira beti. Imanol Unzurrunzaga

Ez ote zure gaiztakeria handia delako eta **amaigabeak** zure erruak? Elizen arteko biblia

Bidean, han hemen, landa zabal **amaigabeen** ezpondetan, almendrondo loratuek sorgindu naute. Patziku Perurena

Haren ahotsaren auhenean zelai berdeen itxaropena dago, lore-bainuaren mineria; haren gitarran errepide **amaigabeen** nostalgia. Pako Aristi

Ebroko bataila amaiezin hartan, Aragoiko eremu **amaigabeetako** lubakietan. Xabier Mendiguren Elizegi

Goizaldean itzuli diren gelakideak esnatu baino lehen hanka egin, eta abenida **amaigabeetan** barrena ibiltzeari ekin diot, lasai. Patxi Zubizarreta

Gari-sail **amaigabeetan** barreiatzen du bere pena hiltzera doan egunak. Pako Aristi

Gaur egun mahai gainean dituzten benetako arazoentzako erantzunak bilatu beharrean estatuak bere botere egiturei eusten ahalegintzen diren aldi berean, politika global bat ari da sortzen, elkarrekintza-sare **amaigabeez** horniturik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

4 (izen gisa)

Aurrerabide ahalgarri hau **amaigabera** doa agerpenen ilaran. Ibon Uribarri

Hau aintzat hartu gabe ere, ez da inolaz ere zilegi **amaigaberaino** zatigarria den halako osokiaz zera esatea: zati anizkun amaigabeez osatzen da. Ibon Uribarri

Amaigaberanzko itzulera-bidea. Ibon Uribarri

Osoki artikulatu (organizatu) orotan zati bakoitza berriro artikulatua dela eta honela zatien analisi amaigabearen bitartez beti zati artifizial berriak aurkitzen direla onartzea, hitz batean, osokia **amaigaberaino** artikulatua dela onartzea, ezin da pentsatu, nahiz eta ederki pentsa daitekeen materiaren zatiak beren **amaigaberainoko** deskonposaketan artikulatuak izan zitezkeela. Ibon Uribarri

5 (adizlagun gisa)

Zeru izarrez izorrari so dago, txunditurik, **amaigabe** begitantzen zaion unibertsoan hauts-izpi ezdeus iritzirik bere buruari. Joxerra Garzia

Espazio honek, ordea, kenketa honekin ere beti **amaigabe** dirau. Ibon Uribarri

Formalitateak **amaigabe** ugalduko dira, herritarrei ez zaie emango bestelakorik, babes okerra baizik eta konponketa gaitza baino okerragoa izango da. Andres Urrutia

Horrela bada, mundualdi labur honetan gorputz-arimak galdu dituzte, eta infernura joango dira eta **amaigabe** penatuak izango bertan. Askoren artean

Batek pinta dezake maite duen emakumearen erretratua, baina erretratu bat izango da beti ere; Rossetti-ren jarduna, emakumearen aurpegia behin eta berriz **amaigabe** errepikatzea, ordea, bere maitasun obsesiboaren lekukotasuna da. Ramon Saizarbitoria

Berak ez du eratzen batasun erretoriko edo formal bat, **amaigabe** errepika daitekeena. Xabier Arregi

Gure oinen pean honelako lekuetako ohiko hartxintxarra, urruntxeago belardia eta lore horiak, eta **amaigabe** luzatzen zen asfalto zuri akasgabea. Urtzi Urrutikoetxea

Amaigabe biziko al da, bada? Ez al du inoiz hilobia ikusiko? Elizen arteko biblia

Estatu horietako baten izenean zikiratze sinbolikoa **amaigabe** jasaten jarraitu behar ote dugun da ETAren su-etenak mahai gainean jartzen duen galdera. Joseba Zulaika

Anbotoko Dama izango zen, jakina, ezaren bila **amaigabe** dabilena. Joseba Zulaika

6 ***torloju amaigabe*** *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Torloju amaigabea angelu zuzenean (perpendikularrean) dauden bi ardatzen arteko mugimendua transmititzen duen elementuari deritzo. ETC-entziklopedia

Heronek osoko azalpenak eman zituen bost makina "sinpleri" buruz -baita beraien konbinazio batzuei buruz ere-, zeinen bitartez pisu jakin bat indar jakin baten bidez mugitu ahal baitzen: gurpila eta ardatza, palanka, polea, ziria eta **torloju amaigabea**. ETC-literatura, saiakera

Teknika horretan, trinkotu nahi den hautsari altzairuzko arrabol batzuen artean pasarazten zaio **torloju amaigabe** baten bitartez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Barne-torlojudun nahasgailu orbitala, berriz, kono-enbor itxurako ontzi bat da, gai helikoidal batzuez hornitutako **torloju amaigabe** bati lotuta beso giltzatu bat duena; beso horrek mugimendu planetarioa du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Errodamenduak, engranajeak, **torloju amaigabeak**, zorroak, balbula-asentuak eta karterrak, desugerketa-kakoak... ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adanen poema amaigabea** (4); **amaigabe bat** (13); **amaigabe batean** (8); **amaigabe batez** (3); **amaigabe eta** (4); **amaigabe gisa** (5); **amaigabe haiek** (3); **amaigabe honetan** (3); **amaigabe hori** (3); **amaigabea da** (17); **amaigabea dela** (4); **amaigabea den** (5); **amaigabea edo** (3); **amaigabea egin** (3); **amaigabea egiten** (3); **amaigabea ere** (4); **amaigabea eta** (4); **amaigabea izan** (7); **amaigabea zirudien** (6); **amaigabeak dira** (4); **amaigabeak egin** (6); **amaigabeko ikerketa** (3); **amaigaberaino zatigarria** (3); **auto ilara amaigabeak** (3); **baitan amaigabea** (3); **bere baitan amaigabea** (3); **dagokionez amaigabea** (5); **espazioari dagokionez amaigabea** (3); **eta amaigabe** (5); **eta amaigabea** (7); **eta amaigabeak** (4); **eta amaigabeko** (7); **ilara amaigabeak** (7); **kopuru amaigabea** (7); **maila amaigabe** (4); **ordu amaigabeetan** (3); **perpaus kopuru amaigabea** (3); **poema amaigabea** (4); **urteak amaigabeak** (4); **zerrenda amaigabea** (9); **zerrenda amaigabea da** (6); **zure urteak amaigabeak** (4)

---

amaigabeko *izlag* amairik ez duena.

Bizia eskatu dizu, eta zuk eman, **amaigabeko** egun luzeetan. Elizen arteko biblia

Jaunak libre eginak; poz-oihuka etorriko dira Sionera: **amaigabeko** alaitasuna haien aurpegian! Elizen arteko biblia

Zertarako ditut **amaigabeko** zuen sakrifizioak? Elizen arteko biblia

---

amaigabetasun *iz* amaigabea denaren nolakotasuna.

Denboraren **amaigabetasunak** hau besterik ez du esan nahi: denboraren handitasun determinatu oro bere oinarrian datzan denbora bakarraren zedarriztapen gisa baino ez dela ahalgarria. Ibon Uribarri

Ea espazioa **amaigabetasuneraino** zerizanez betea edo muga batzuen barnean jasoa dagoen; ea mundu honetan zerbait bakuna baden edo dena amaigabeki zatitu behar den. Ibon Uribarri

Izan ere, handitasunaren halako adigaia, **amaigabetasun** jakinaren adigaia denez, enpirikoa da, eta beraz, munduari dagokionez erabat ezinezkoa ere bai sentsuen objektu gisa. Ibon Uribarri

Horregatik, ondorioztapena ere hemengoaren aldean beste bat izan zen, hots, bere **amaigabetasun** erreala inferitu zen. Ibon Uribarri

Beharrezkotasuna, **amaigabetasuna**, batasuna, mundutik at izatea (ez munduaren arima gisa), betikotasuna denboraren baldintzarik gabe, oropresentzia espazioaren baldintzarik gabe, ahalguztiduntasuna, eta abar, predikatu transzendental soilak dira, eta horregatik, beren adigai araztuak, Teologia orok oso beharrezkoak dituenak. Ibon Uribarri

---

amaika ik **hamaika**.

---

amaikide *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) izond* hitzez mintzatuz, amaiera berdinekoa.

Randall, mandal, **amaikideak** dira eta! ETC-literatura, saiakera

Oraingo honetan itzultzaileak bertsio moderno berri bat ekarri du, zeinean bertso bukaera guztiak **amaikideak** baitira. ETC-literatura, saiakera

Amaikideak diren hitzek errima bera dute; elkarrekin aliterazioa eratzen dutenek, silaba-hasiera bera (edo hasierako kontsonantea bakarrik). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amaikor *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi) izond* amai daitekeena.

Egia gogor hori kontuan harturik antolatu behar dugu gure bizialdi **amaikorra.** ETC-literatura, saiakera

Sekula ahituko ez dela dirudien indar metaketa, sekula hautsiko ez dela dirudien lotura magnetikoa, izatez eta egiaz erabat zirkunstantziala eta **amaikorra**. ETC-literatura, saiakera

Esango didazu lotura **amaikorra** dela, edo behin betikoa, kasuan kasu, azken batean, dopaminen eta oxitozinen portzentajeek ere determinatzen gaituztela. ETC-literatura, saiakera

Kopuruari dagokionez, zer dira esferak, **amaikorrak** ala amaigabeak? ETC-literatura, saiakera

Emakumeak, zeinak **amaikor** izatera kondenatzen baitu gizona, modua ematen dio bere mugak gainditzeko ere: horrexek janzten du emakumea magia anbiguo batez. ETC-literatura, saiakera

Bertsoaren izaera **amaikorra** nabarmena da zenbait kasutan. ETC-prentsa

Energia fosilak, **amaikorrak** direnez, ez direla lehengo prezioetara itzuliko. ETC-prentsa

Jarduera gizatiarra funtsean da **amaikorra**, muinean mugatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sentsazio horren berri eman behar du literaturak, hots, betikotasuna bizitzaren denbora **amaikorrean** gertatzen den instant oso eta biribil hori adierazi. ETC-zientzia, zuzenbidea

Richter-ek umorea giza ideien arteko kontraste gisa definitzen du: gizakiaren ideia orok, berez mundu **amaikorra** besterik ezagutzen ez dutenak, infinituarekin kontrastean sartzen dira, eta mundu **amaikorra** amaigabetzat jotzean, eta alderantziz, amaigabea **amaikortzat** jota, umore-efektua lortzen omen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amaikortasun *iz* amaitzeko joera duenaren nolakotasuna.

Berak honako gaia eskegitzen du, hots, jarraitasuna absolututzat jotzea: lehena eta banaezina den kateaketatzat jotzea, diskurtsoa jarraitasun horren mendekoa izango lukeena bere **amaikortasunaren** legeagatik; eskegitzen du, halaber, diskurtsoan forma bakarra eta jarraitasun maila bakarra baino ez duen gaia. Xabier Arregi

amainari *iz* lausenguzkoa, faltsua.

Frantxuaren proposamena **amainari** zen. Itxaro Borda

---

amainatu, amaina(tu), amainatzen du *ad ipar* amore eman.

Jadanik Otsabideko Zarteia baserria sektaren mende zen, Lilaren antzeko beste andere batek horko jaun adindua **amainatu** ondoren: Demagun, gizonak zakila eta barrabilak hanturik, emaztearen alu bustiaren zokoaren zokoan aterpea bilatuz, sabelera botatzen duen haziak intziri eta karkaraz dabilen arrautza bakartia **amainatzen** duela. Itxaro Borda

-Hark gaitu igortzen... -xanpatu zuen Txokok emaztearen atorra urratuz eta titi puntak metxeroaren suaz **amainatuz**. Itxaro Borda

---

amaitarazi ik **amaiarazi**.

---

amaitezin ik **amaiezin**.

---

amaittu ik **amaitu**.

---

amaitu *(ETCn **25.973** agerraldi; orobat **amaittu** g.er.)* , amai(tu), amaitzen **1** da/du *ad* amaiera eman, bukatu.

Nik amore eman baino lehen **amaitu** zen borroka. Bernardo Atxaga

Adibide honi buruzkoak **amaitu** aurretik, aipatu behar da, gainera, zenbait hizkerez jabetzeak, hala nola Debakoaz, ez dakarrela /d/Š " bilakabidea gainditzea. Lourdes Oñederra

Gaztaroa **amaitzean** , haurtzaroko magia desagertu ahala, gure harremana hozten hasi zuan. Xabier Olarra

Bi anaiak joan eta handik gutxira hil zen Baby Suggs, haien joanaz edo bereaz batere axolarik gabe, eta Sethek eta Denverrek berehala erabaki zuten jazarpen harekin **amaitzea** , nola eta mamu estutzaile hari dei eginez. Anton Garikano

Horregatik Agustinek Jaungoikoari eskerrak emanez **amaitzen** du elkarrizketa. Imanol Unzurrunzaga

Halakoetan, beti **amaitu** zuten laztanka, ordea. Iñaki Iñurrieta

-Hara, poeta atera zaigula gure herren ttikia! - bota zuen irakurketa **amaitzean** Juliok, gaizto -. Juan Kruz Igerabide

Hark sortua zela Madrileko Antropologia Museoa ere, eta berriro és del tot fiable, és del tot fiable esanez **amaitu** zuen liburu-saltzaileak bere jarduna. Anjel Lertxundi

Hori, baina, geroago izan zen, gudua **amaitzekotan** zebilen egun haietakoren batean. Karlos Linazasoro

Ez nuke hitzaurretxo hau **amaitu** nahi aspaldiko partez berriro irratian jarduteko aukera eman didatenei neure esker ona agertu gabe. Joxerra Garzia

Zerrendak **amaiturik** ematen zuenean, beti geratzen zen norbait aurrekoa baino kantu ausartagoren bati ekiten ziona, ahal bazen behintzat. Josu Zabaleta

Sperling doktorea sinetsita dago juduen aurkako segadak behin-behinekoak direla eta gerrarekin batera **amaituko** direla. Felipe Juaristi

Saio normala **amaituta** , propinen txandan, "Itziarren semea" kantatu zuten, entzuleren batek eskatuta. Agurtzane Juanena

Bonden filmetan gauza, etxe eta gailu guztiek **amaitzen** dute birrindurik. Hasier Etxeberria

-Gaur **amaitzen** da epea -gaineratu nion nik. Joxan Elosegi

Lehentxeago **amaitutako** paketeak alfonbrari ezinezko kolore joko bat proposatzen zion lurrean. Unai Iturriaga

Ikasketak **amaitu** ondoren apartamentu batean jarri zen bizitzen beste lagun batekin. Iñaki Zabaleta

Atzamarraren presio txiki bat gakoan eta kito, presio txiki bat eta dena **amaituko** da. Sonia Gonzalez

Hitz horiekin **amaitzen** zen mezua. Karlos Zabala

Horrela **amaitu** al zen erromantzea? Xabier Paya

Bidea **amaitu** eta ezin aurrera jo. Gotzon Garate

Orain **amaitzen** ari den mende honetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Apezak latinez hiruzpalau perpaus ahoskatu zituen, denak "pro ella" hitzaz **amaitzen** zirela. Itxaro Borda

Emile purrustaka altxatu zen eta zutik, une batez, mendebaldeari begira geratu zen, han olatuak nikelezko zerua ebakitzen zuen lerro gorabeheratsu batean **amaitzen** baitziren. Lopez de Arana

BBC eta Blair-en Gobernuaren arteko ika-mikak jarraitu zuen inbasioaren lehen fasea **amaitu** eta gero. Txema Ramirez de la Piscina

Gure bilkurak **amaitu** dira. Andres Urrutia

Atsedenaldia **amaituta** , dama bere zaldian igo eta talde osoak aurrera egin zuen, harik eta agure bat bide erdi-erdira atera zitzaion arte. Martin Anso

Azken baserriko gariak jotzea **amaitu** zutenean, afalondoren soinua nahi. "Upaitxiki" baserriko "Manolete" delako bat Agarrera jaitsi omen zen, Gelatxoren bila. Pako Aristi

Ondo dakien legez, edozein egunetan **amai** daitekeela Asierren zorion handiena, Nerea munduko nesketan maitagarriena izanda ere. Urtzi Urrutikoeetxea

Oppenheimerrek zigarroa **amaitu** zuen. Fernando Morillo

Gastonek bere garagardo epelaren hondar geza **amaitu** zuen eta dena esanda geratu zen. Josu Zabaleta

Hala ere, ez da hor **amaitzen** menderatu beharra. J.M. Olaizola "Txiliku"

Musika-ikasketak **amaitu** nituenean, ez nuen solfeoa eta antzekoen irakaskuntzaren bidetik jo nahi izan, antzu eta tristea irizten bainion ikasketen garaian ezagutu nituen hainbat irakasleren jardun errutinazkoari. Anjel Lertxundi

Zenbait idazlek, ibaiaz bestaldera iristeko xedea ahazturik, sekulako eskulturak eraikitzen dituzte, beren ertzean hasi eta bertan **amaitzen** direnak. Joxerra Garzia

Hark esaten zuenez, gerra **amaitzean** , holandar herriak alemaniarren okupazio aldian jasandako sufrimenduen lekukotasuna emango zuten idatzi guztiak bildu eta argitaratzeko asmoa zegoen. Josu Zabaleta

Itoizko urtegia betetzen hasi dira, baina Itoizko urtegiaren kontrako borroka ez da **amaitu** . Edurne Elizondo

Allahren izenean, bilera **amaitu** da. Xabier Olarra

Langintza hura **amaitu** zuen momentu berean, bere morroirik zintzoena hurbildu eta, arnasestuka, erran zion: Josetxo Azkona

Ez dut inoiz **amaitu** neure tesia. Jon Muñoz

Hortxe, uztailean juxtu, **amaitzen** da getariar fraide gaztearen firma. Pello Zabala

Orduan, egun batez, dena **amaitu** zen. Oskar Arana

Amaitu duenak bezala hitz egiten dio bakarren batek kamerari. Arantxa Iturbe

Zalakainen eta Urbideren erabateko garaipenaz **amaitu** zen partida. Koro Navarro

Kasuen kopuru adierazgarri batean, pitzadurak zelula-barrunbeetan **amaitzen** zirela ikusi zen. Irene Aldasoro

Azterketak zuzentzen **amaitu** nuen. Joseba Urteaga

Adibide xume bat jartzeko, gure bizitzak "itsasoan **amaitzen** diren ibaiak" izatea ez diogu errealitateari zor, poetari baizik. Bernardo Atxaga

Badirudi **amaituta** daudela ospakizunak aurtengoz. Jon Arretxe

Nolanahi ere, nekatua nago bizitzaz, baina ez dut **amaitu** nahi horrek hilda. Koro Navarro

Estatu unibertsalen hilezkortasunari buruzko sinesmen setatiaren lekukotasun are ohargarriagoa haien arimei dei egiteko praktika da, **amaitu** zirenean hilkorrak zirela erakutsi ondoren. Iñaki Mendiguren

Tira, orain kontuan hartu behar duguna da bizpahiru minutu baino ez direla gelditzen irratsaio hau **amaitzeko**. Jon Arretxe

Harrisonek ere azaldu dizu: dagoena da sekula **amaitzen** ez den gerra. Jon Alonso

Hiltzea, lo egitea, besterik ez; eta lo horrez **amaituko** balitzaizkigu, bihotz-minarekin, haragiari berez datxezkon mila ezbeharrak... bai akabera irrikagarria horixe. Juan Garzia

Tiro festa **amaitu** denean, Mario lurrera amildu da, ziplo, tripako zuloari bi eskuez helduta. Patxi Iturritegi

Liburu bakoitza unitate bat da, hasi eta **amaitu** egiten dena, edo zure obraren konstanteei erantzuten dien osagai bat? Ana Urkiza

Ilehoria zen berez, baina gerra **amaitu** ezkero beltzaranera tintatua zeukan beti. Josu Landa

Hamabi kontakizun -gero beste hiru erantsi zituen- **amaituak** zituen 1905ean. Irene Aldasoro

Alkateak **amaitutzat** jo zuen bilera. Felipe Juaristi

Berruezok aldarrikapen solemne batez **amaitzen** du jai honen jatorriari buruzko gogoeta hau, Danborrada hasieran nola hartzen zen irudikatzeko lehen hurbilpen egoki bat dela konbentziturik: Askoren artean

Bi minutuan kolpe bortitzak eta laztan leunak egin zizkidan gerri-bueltan, eta **amaitu** zuenerako ziztadarik ez nuen sentitzen. Jasone Osoro

Promenada **amaiturik**, etxera hartzen dut, bazkaldu eta banoa harkaitzetan goiti. Koldo Izagirre

Zigorra guztiz betetzeke, atzera ere Eibarren izan behar zuen Jazinto Rivasek gerra **amaitu** orduko. Iñigo Aranbarri

Aitor dezadan gehiago tiratzen ninduela Bizitza Iraunkorraren edabeak: desesperagarria egiten zitzaidan, izan ere, Jaungoikoa ulertu eta nigan sentitu baino lehen dena **amaitu** egingo zela pentsatzea. Xabier Aranburu

Herri ondoko oihanetik harago, bistak harrapatu ezin duen baso amaigabea **amaitzen** den lekuraino. Jon Maia

2 (era burutua izenondo gisa)

Ez dute zenbatekorik zehaztu, eta argudiatu dute produktu **amaituen** atala optimizatu nahi dutela. Berria - Ekonomia

Katek, Boldan erdi **amaituari** eutsita, barraren beste puntatik egiten zion so aspaldian handik azaldu zen berritasun xelebre eta bitxienari. Sonia Gonzalez

Eta gorputz **amaituetan** sartzea ere ezinezkoa da; ezingo bailukete haiekin sutilki bat egin, ez sentikidetasunez elkar ukitu. Xabier Amuriza

Hala nola, ondasun eta zerbitzu **amaituen** kalitatearen hobekuntzak ez direla jasotzen behar bezala BPGan, eta beraz, produktibitatean. Iñaki Heras

Ez al duzu gogoan behin gaindituta diskurtsoaren amaiezintasuna ahalezkoa egiten duten sistema **amaituak** (ezgai direnak, hala eta guztiz ere, bera oinarritzeko eta azaltzeko) aurkitzen dela transzendentzia baten arrastoa, edo gizakiaren lana? Xabier Arregi

Eta porru pastel kasik **amaitua** labean sartu dugularik, letren sukaldariak atseden har dezake, edota kopa bat ardo; baina pastelari tarteka kontu egitea ahantzi gabe. Patxi Zubizarreta

3 (adizlagunekin)

Ez du gaizki **amaitutako** libururik topatuko, eta gaizki **amaitutakoetan** barkatzen jakingo du, barka diezaioten. Lander Garro

Lehendabiziko munduko itzulia bizirik **amaitu** duten 18 lagunak, ator bat soilik soinean, elizara joan omen ziren oinutsik. Ramuntxo Etxeberri

Begiak irten beharrean ari zaizkizu irakurketan aurreratu ahala, eta ondoezik jartzen zara irakurtzen ari zaren kapitulua garaiz **amaitu** ezean. Javi Cillero

Azkarrago **amaitzearren** da. Itziar Otegi

Sasoi ia betean nengoen orduan baina beldur nintzen ez ote zen egoera hura agudo xamar **amaituko**. Joxan Elosegi

Saiatu, saiatzen nintzen zerbait; baina berehala **amaitzen** zitzaidan jarduna. Jesus Mari Mendizabal

4 ***amaitzeko***

Amaitzeko, filosofia moralean aurreikusten diren hainbat arriskuren berri emango da. Askoren artean

Gelakideak kanpoan zeudenez ("Zuk galtzen duzu, Rakel, zuk galtzen duzu"), lasai baino lasaiago, bainu bat hartu, frakak garbitu, eta, **amaitzeko**, ispilu aurrera agertzean, lardaskan ibili naiz gelakideen krema harrigarri ugarien artean (argi dago estetizistak direla). Patxi Zubizarreta

Egainlanen txostena egin dutenek diote egoera hori guztiz kezkagarria dela, eta **amaitzeko** hau gaineratzen dute: "Prestatu dituen ikasleei lan aukerak eskaintzen ez dizkien hezkuntza sistema batean inbestitzeak ez du zentzurik". Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Saihets politikotik, **amaitzeko**, oliba olioak eginkizun supraestrukturala betetzen du, "dieta mediterranear" ezin politikoago horren ardatz bakarra delako. Edorta Agirre

Amaitzeko, esan beharra daukat beste moduren batetakoa izango zela liburu hau Mario Artola lagun eta kidea alboan izan ez banu. Jokin Urain

Adibide txiki eta guztiz umil bat, **amaitzeko**. Xabier Mendiguren Elizegi

Amaitzeko, bi hitz: eleberri eder bat da esku artean duzuna, eder izateaz gain Ipar Euskal Herriko barnealdearen erretratu fina eskaintzen diguna. Daniel Landart

Eta begiraleek onartu dute gauez izatea, **amaitzeko** ordua jartzea beren esku gorde badute ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta azkenik, **amaitzeko**, ohe-estalkia. Anjel Lertxundi

Txikikeria bat, **amaitzeko**: "zilargina" deitu diot egileari, urregina jarriz gero lotsatu egingo litzaidakeelako, eta ni neu konbentzituta nagoelako hobeak ere emango dizkigula oraindik. Unai Elorriaga

Amaitzeko, aurten gauzatu nahi duzun amets bat? Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

agintaldia amaitu (10); **amaitu ahal** (11); **amaitu ahal izateko** (8); **amaitu aitzin** (8); **amaitu al** (10); **amaitu arte** (199); **amaitu arte ez** (15); **amaitu arte itxaron** (11); **amaitu artean** (13); **amaitu aurretik** (138); **amaitu baino** (105); **amaitu baino lehen** (84); **amaitu baino lehenago** (10); **amaitu barik** (12); **amaitu behar** (96); **amaitu behar da** (12); **amaitu behar du** (9); **amaitu behar dugu** (8); **amaitu beharko** (14); **amaitu beharra** (16); **amaitu berri** (49); **amaitu berri den** (20); **amaitu berria** (16); **amaitu berritan** (16); **amaitu bezain** (59); **amaitu bezain laster** (43); **amaitu bezain pronto** (10); **amaitu bitartean** (60); **amaitu da** (238); **amaitu da eta** (9); **amaitu dela** (61); **amaitu den** (13); **amaitu denean** (10); **amaitu dira** (46); **amaitu du** (110); **amaitu duela** (8); **amaitu duen** (8); **amaitu dugu** (14); **amaitu duk** (13); **amaitu dut** (24); **amaitu dute** (31); **amaitu egin** (77); **amaitu egin behar** (13); **amaitu egin da** (11); **amaitu egin zen** (18); **amaitu egingo** (17); **amaitu egiten** (13); **amaitu ere** (11); **amaitu eta** (285); **amaitu eta berehala** (10); **amaitu eta gero** (44); **amaitu ez** (29); **amaitu gabe** (80); **amaitu gabea** (10); **amaitu gabeko** (18); **amaitu genuen** (23); **amaitu nahi** (111); **amaitu nahi du** (19); **amaitu nahi dute** (14); **amaitu nahi izan** (10); **amaitu nuen** (39); **amaitu nuenean** (9); **amaitu ondoren** (159); **amaitu orduko** (44); **amaitu ostean** (91); **amaitu zain** (8); **amaitu zela** (30); **amaitu zen** (494); **amaitu zen arte** (11); **amaitu zen atzo** (12); **amaitu zen dena** (13); **amaitu zen lehen** (10); **amaitu zen partida** (25); **amaitu zenean** (72); **amaitu zenetik** (12); **amaitu ziren** (75); **amaitu zirenean** (19); **amaitu zituen** (22); **amaitu zituenean** (10); **amaitu zituzten** (8); **amaitu zuela** (9); **amaitu zuen** (425); **amaitu zuen bere** (16); **amaitu zuen eta** (9); **amaitu zuenean** (77); **amaitu zuten** (150); **amaitu zutenean** (17)

amaituak ziren (8); **aroa amaitu** (12); **artean amaitu** (16); **aspaldi amaitu** (11); **atzo amaitu** (60); **atzo amaitu zen** (34); **atzo amaitu zuen** (11); **aurrean amaitu** (12); **baina amaitu** (13); **bat amaitu** (17); **batean amaitu** (15); **batekin amaitu** (23); **batez amaitu** (11); **behin betiko amaitu** (9); **bere lana amaitu** (8); **berehala amaitu** (9); **bertan amaitu** (8); **betiko amaitu** (12); **bezala amaitu** (12); **bigarren amaitu** (10); **bigarren amaitu zuen** (8); **bilera amaitu** (19); **da amaitu** (62); **da oraindik amaitu** (12); **dela amaitu** (22); **dena amaitu** (23); **denboraldia amaitu** (71); **denboraldia amaitu arte** (29); **denboraldia amaitu bitartean** (13); **donostia amaitu** (8); **du amaitu** (11); **du denboraldia amaitu** (10); **dut amaitu** (8); **eginda amaitu** (8); **egiten amaitu** (12); **eguna amaitu** (9); **ekitaldia amaitu** (14); **epea amaitu** (19); **ere amaitu** (16); **esaldia amaitu** (14); **esanez amaitu** (26); **esanez amaitu zuen** (19); **eskola amaitu** (8); **eta amaitu** (90); **eta hantxe amaitu** (8); **eta hor amaitu** (10); **etapa amaitu** (8); **ez da amaitu** (60); **ez dela amaitu** (20); **eztabaida amaitu** (13); **fasea amaitu** (8); **gabe amaitu** (53); **gabe amaitu zen** (14); **gabe amaitu zuen** (12); **gaizki amaitu** (9); **garaia amaitu** (17); **gatazka amaitu** (9); **gerra amaitu** (82); **gerra amaitu arte** (8); **gerra amaitu eta** (14); **gerra amaitu ondoren** (10); **gerra amaitu zenean** (8); **greba amaitu** (14); **guztia amaitu** (11); **guztiak amaitu** (15); **hala amaitu** (8); **han amaitu** (9); **hantxe amaitu** (19); **hantxe amaitu zen** (10); **hasi eta amaitu** (17); **hau amaitu** (36); **herenegun amaitu** (21); **herenegun amaitu zen** (14); **hitzaldia amaitu** (10); **honela amaitu** (17); **honela amaitu zuen** (10); **hor amaitu** (37); **hor amaitu zen** (15); **hori amaitu** (29); **horrekin amaitu** (22); **horrela amaitu** (35); **horrela amaitu zen** (14); **horretan amaitu** (9); **hortxe amaitu** (15); **hortxe amaitu zen** (8); **hura amaitu** (22); **hutsean amaitu** (12); **ia amaitu** (9); **igandean amaitu** (23); **igandean amaitu zen** (19); **ikasketak amaitu** (61); **ikasketak amaitu eta** (20); **ikasturtea amaitu** (16); **kanpaina amaitu** (13); **kantua amaitu** (9); **karrera amaitu** (22); **kontzertua amaitu** (10); **lana amaitu** (34); **lanak amaitu** (22); **legegintzaldia amaitu** (11); **lehen postuan amaitu** (14); **lehenago amaitu** (8); **lehenbailehen amaitu** (9); **liga amaitu** (29); **liga amaitu bitartean** (14); **manifestazioa amaitu** (10); **mundu gerra amaitu** (8); **nola amaitu** (21); **ondo amaitu** (12); **oraindik amaitu** (32); **osoa amaitu** (8); **otoitza amaitu** (10); **partida amaitu** (47); **partida amaitu ondoren** (8); **plazan amaitu** (8); **postuan amaitu** (45); **postuan amaitu zuen** (25); **pozik amaitu** (8); **prozesua amaitu** (11); **puntutan amaitu** (8); **puntutan amaitu zuen** (8); **saioa amaitu** (17); **sasoia amaitu** (31); **sasoia amaitu arte** (18); **urtea amaitu** (81); **urtea amaitu aurretik** (38); **urtea amaitu baino** (24); **urtea amaitu bitartean** (8); **urtean amaitu** (11); **zatia amaitu** (10); **zergatik amaitu** (8); **zuen amaitu** (14)

amaituko baita (8); **amaituko balitz** (9); **amaituko da** (401); **amaituko dela** (34); **amaituko den** (37); **amaituko dira** (71); **amaituko dituzte** (10); **amaituko du** (52); **amaituko duela** (12); **amaituko duen** (8); **amaituko dugu** (12); **amaituko duk** (8); **amaituko dut** (13); **amaituko dute** (43); **amaituko litzateke** (10); **amaituko ote** (11); **amaituko zaio** (16); **amaituko zela** (14); **amaituko zen** (9); **amaituta dago** (10); **amaituta egon** (8); **amaituta egongo** (12); **amaituta zegoela** (11); **amaituta zegoen** (15); **amaitutzat eman** (91); **amaitutzat eman du** (10); **amaitutzat eman zuen** (13); **amaitutzat eman zuten** (13); **amaitutzat emango** (13); **amaitutzat ematea** (9); **amaitutzat ematen** (12); **amaitutzat jo** (44); **amaitutzat jotzen** (8); **amaituz gero** (14); **asteburuan amaituko** (10); **asteburuan amaituko da** (9); **aurrean amaituko** (8); **batean amaituko** (9);

batekin amaituko (16); bertan amaituko (17); bihar amaituko (30); bihar amaituko da (19); da amaituko (8); dena amaituta (8); denboraldia amaituta (18); ekainean amaituko (11); eta amaitutakoan (12); eta amaitutzat (8); eta gaur amaituko (11); etapa amaituta (11); gaur amaituko (94); gaur amaituko da (55); gaur amaituko dira (20); gerra amaituta (15); gerra amaitutakoan (9); hor amaituko (8); igandean amaituko (8); ikasketak amaituta (8); inoiz amaituko (14); lanak amaituta (9); laster amaituko (16); noiz amaituko (27); partida amaituta (23); partida amaitutakoan (14); saioa amaituta (10); sasoia amaituta (30)

amaitzea da (22); amaitzea espero (22); amaitzea espero dute (8); amaitzea eta (23); amaitzea lortu (10); amaitzea nahi (17); amaitzeko asmoa (11); amaitzeko aukera (19); amaitzeko bi (25); amaitzeko bi minutu (9); amaitzeko bide (8); amaitzeko bost (23); amaitzeko bost minutu (10); amaitzeko eskatu (33); amaitzeko eskatu zuen (8); amaitzeko eta (26); amaitzeko garaia (8); amaitzeko geratzen (8); amaitzeko hamar (8); amaitzeko hiru (10); amaitzeko lau (8); amaitzeko minutu (10); amaitzeko neurriak (11); amaitzeko sei (11); amaitzeko zazpi (9); amaitzen ari (82); amaitzen ari da (12); amaitzen ari zen (14); amaitzen bada (10); amaitzen da (130); amaitzen den (45); amaitzen denean (49); amaitzen dira (18); amaitzen diren (17); amaitzen du (43); amaitzen dudanean (11); amaitzen dut (13); amaitzen dute (19); amaitzen ez (29); amaitzen ez den (10); amaitzen utzi (11); amaitzen zaio (27); amaitzen zaio kontratua (20); amaitzen zela (10); amaitzen zen (61); amaitzen ziren (19); amaitzen zitzaion (9); amaitzen zuen (15); amaitzerik izan (15); aurten amaitzen (9); bat amaitzen (18); batean amaitzen (16); batekin amaitzen (10); behin betiko amaitzeko (13); betiko amaitzeko (15); da amaitzen (11); da hor amaitzen (13); denboraldia amaitzeko (34); dira denboraldia amaitzeko (13); dira liga amaitzeko (13); ekainean amaitzen (28); ekainean amaitzen zaio (16); eta amaitzeko (32); eta amaitzen (24); ez da amaitzen (9); fasea amaitzeko (16); gabe amaitzea (12); gatazka amaitzeko (9); gaur amaitzen (9); gerra amaitzean (8); gerra amaitzeko (9); hasi eta amaitzen (9); hau amaitzeko (8); hau amaitzen (9); hemen amaitzen (23); hemen amaitzen da (17); honekin amaitzeko (8); hor amaitzen (27); hori amaitzeko (14); hori amaitzen (10); horrekin amaitzeko (8); horrela amaitzen (12); ikasketak amaitzean (10); ikasketak amaitzen (9); indarkeria amaitzeko (36); inoiz amaitzen (13); jaso gabe amaitzea (9); jokaldiak amaitzen (8); kontratua amaitzen (16); lana amaitzeko (11); lehenbailehen amaitzea (17); lehenbailehen amaitzeko (9); liga amaitzeko (59); nola amaitzen (14); non amaitzen (12); partida amaitzeko (75); politika amaitzeko (17); sailkapen fasea amaitzeko (16); sakabanaketa amaitzeko (24); sakabanaketa politika amaitzeko (11); sasoia amaitzeko (12); sekula amaitzen (8); tortura amaitzeko (15); urtea amaitzerako (9); zatia amaitzeko (12)

---

amaitugabe *izond* amaitu ez dena, amaitu gabe dagoena.

Agian, eta hori badaezpadako erreparo guztiak hartuta, tatuajeak ez zuen bidea egina neure bizkarrean, eta harreman **amaitugabe** batean genbiltzan. Javi Cillero

Nire lehenengo lan **amaitugabea** izan zen hura. Iban Zaldua

Periferia hiria biltzen duen inguru habitatua da, nolabait esateko, ziutatearen alderdi **amaitugabea**. Iñigo Aranbarri

Dena konponduko zela pentsatzen zuen margolariak, koadroak bere pasioa zirelako eta ez zuelako jasaten, garai haietan, lan **amaitugabearen** mehatxua. Iban Zaldua

Ez al zen ezkutatzen, bada, etxe sekretu haren hobenetan agure errukarriek zituzten amets **amaitugabeen** oroimina, alferrik galdutako egunen damua? Ibon Uribarri

---

amaitze 1 *iz* amaiera ematea, bukatzea.

Bizia jaiotze bat, garatze bat eta **amaitze** bat izaten da askotan. Berria - Kultura

Besteentzat karrera **amaitze** hutsa nahikoa lan izan daiteke. Berria - Kirola

Baina, halaz eta guzti, idazlearen liburu-**amaitze** hura onesten zuen, amaiezineko urruti ibiliak eskainiz eta Patxi Ezkiaga

2 *amaitze aldera* amaitzeko.

Amaitze aldera, errezitatu dituzun poemak naturaren izugarrikerietan dute oinarria. Patxi Zubizarreta

Amaitze aldera, Dabid, esan gura dizut Rakel gaur ere ilaran dagoela kanpineko telefono honetatik deitzeko, baina saiatuagatik beti haren aurretik egokitzen naiz eta ezin ba jakin nori deitzen dion. Patxi Zubizarreta

Amaitze aldera, jakizu atzo diskoteka moduko batean egon ginela, eta Rakelek Ruben atera zuela dantza egitera. Patxi Zubizarreta

Besteak beste, "tratu txarrak eta torturak" **amaitze aldera**, berme juridikoak eta legalak abian jartzeko ahal den guztia egitea beharrezkotzat jo zuen Uriartek. Berria - Harian

Esan dezadan, **amaitze aldera**, ahozko jarduna dela, nire iritzian, herri hizkeren esparru nagusia, eta baita literatura euskalkiena ere, salbuespenak gorabehera. Koldo Zuazo

Goseak amorratzen nengoen eta zerbait esatea erabaki nuen sesioa **amaitze aldera**. Anjel Lertxundi

Aipatu diren onurak direla eta, ohar bi egin nahi ditut **amaitze aldera**. Koldo Zuazo

Fronte Polisarioak abuztuaren 19an askatu zituen azken 404 gerra preso marokoarrak, 30 urteko gatazkarekin **amaitze aldera**. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amaitze aldera (15)

---

amaitzear *adlag* amaitzeko zorian.

Bi alaba ditut, eta biak hazita, unibertsitateko karrera **amaitzear** dute, eta bakoitza bere bizitza hastera doa. Berria - Euskal Herria

Hain zuzen ere, **amaitzear** den denboraldian zaleek gehien eskatu duten obra interpretatuko du BOSek. Berria - Kultura

Donostiako Kursaaleko kubo txikian egin zuten ekitaldi politikoa, eta hura **amaitzear** zela Bergarako proposamenaren sustatzaileak [...] oholtzara igo ziren, martxoko hauteskundeetan baliatu beharreko botopapera erakusteko. Berria - Euskal Herria

Tarteka-marteka segitzen dudan pilota partidua **amaitzear** dago, 21-18 urdinen alde. Patxi Iturritegi

Memento honetan **amaitzear** dago ikerketa; azkeneko lanak ari gara egiten. Berria - Mundua

Iluntzen ari zuen; **amaitzear** zegoen astelehena. Jon Muñoz

Garaitsu hartan nengoen, gainera, zirt edo zart egiteko puntuan, alde batera edo bestera, karrerako sei urteak **amaitzear** nintzenez gero. Joan Mari Irigoien

Denborak esango digu noizko berregingo duten kostaldeko bidea, eta zein preziotan, amerikarrek, debalde egin eta, gainera, dagoeneko **amaitzear** izango luketenean. Pako Aristi

Lajos, ordea, diru behar larrian zen une haietan, **amaitzear** baitzuen kanbio-letra batzuk ordaintzeko epea... kinka gaiztoan zen labur esanda. Ander Irizar

Beste hiri bat aurkitu dut, eta gelditzera egin dut, urrea **amaitzear** baineukan, besteak beste. Juan Garzia

Mendea **amaitzear** zela, Espainiako biztanleen bizitze itxaropena Europakoena baina handiagoa zen. Pello Salaburu

Aipaturiko gertakizuna, aitak inori ez kontatzeko agindu zidana, gerra **amaitzear** zela jazo zen. Ramon Saizarbitoria

Donostiako zezen plaza ere kontzentrazio eremu gisa erabiltzeko prestatu zuten gerra **amaitzear** zela. Jokin Urain

Doi-doia harria zizelkatzen **amaitzear** zeudela, errailetik irten zen tren bat. Oskar Arana

Hire egunak **amaitzear** zaudek. Agustin Otsoa

Kapituluaren amaieran, edo, hobeto esanda, **amaitzear** zegoenean, Frantzisko dohatsuak gogoratu zuen artean landatu gabe zegoela Ordena Alemanian. Askoren artean

Stalin, Pol-Pot, adibideak ugari dira **amaitzear** dugun mende honetan. Xabier Montoia

Amaitzear den mendea biziki arduratu da azido nukleikoez eta proteinez. Juan Garzia

Urtea **amaitzear**, %16,6ko igoera pilatua du jada Ibex-35ak. Berria - Ekonomia

Bizkaian, bi txapelketa **amaitzear**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amaitzear dago (14); **amaitzear dagoela** (6); **amaitzear daudela** (3); **amaitzear dela** (5); **amaitzear zegoela** (7); **amaitzear zegoen** (8); **amaitzear zegoenean** (5); **amaitzear zela** (28); **denboraldia amaitzear** (5); **denboraldia amaitzear dago** (3); **eta amaitzear** (5); **gerra amaitzear** (8); **gerra amaitzear zela** (3); **hura amaitzear** (4); **karrera amaitzear** (3); **lehen zatia amaitzear** (6); **mendea amaitzear** (4); **partida amaitzear** (10); **partida amaitzear zela** (8); **txapelketa amaitzear** (3); **urtea amaitzear** (3); **zatia amaitzear** (7); **zatia amaitzear zela** (4)

---

amaitzearren *adlag* amaitzeko.

Amaitzearren, hitz batera laburbilduko nuke orain arteko guztia: errugabetasuna, eta inongo zalantzarik gabe zuei horren aldeko epaia eskatzen dizuet. Patxi Zubizarreta

Azkarrago **amaitzearren** da. Itziar Otegi

---

amaitzeke *adlag* amaitu gabe.

Eta euri honen presentzia negar ttiki bat zatekeen, baserriko lanak **amaitzeke**, artean ere euriak enbarazu egiten zuelakoz. Pello Zabala

Hasieran Diputazioak aurkeztutako trafiko azpiegitura plangintzan egon ez arren, eta beste hainbat herri lan **amaitzeke** dauden arren, "hegoaldeko saihesbideak lehentasuna hartu" duela nabarmendu zuen Friasek. Berria - Euskal Herria

Artean, ordea, bilera **amaitzeke** zegoen. Berria - Ekonomia

Bilera hori **amaitzeke** zen erredakzio hau itxi zenean, eta hori gertatu bitartean hitzarmenaren gakoak ezin ziren plazaratu. Berria - Ekonomia

Herenegun **amaitzeke** utzi zuten lana atzo arratsaldean egin zuten. Berria - Euskal Herria

Hamabi-hamalau urte bitartean-edo saiatuko nintzen tabakoa erretzen, pare bat aldiz, baina emaitza ikusita berehala etsi nuen, batere penarik gabe eta zigarro bat bakarra ere **amaitzeke**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

amaiurtar *izond* Amaiurkoa.

Hirugarren ateratu da Dominique Parachu Bidarraitarra ta laugarren Felix Irigoyen **Amaiurtarra**. Herria

Hirugarren ateratu da Dominique Parachu Bidarraitarra ta laugarren Felix Irigoyen **Amaiurtarra**. Herria

---

amaizun *iz* amaordea.

Ama utzi-eta, **Amaizuna** har, gerta liteke orduian. Piarres Xarriton

Lehen nire ama zinen, orain **amaizuna**; saminez hilarazi nahi nauzu, adiskideak eta lurrak kenduta. Juan Kruz Igerabide

Zu zara **amaizuna**, zu! Josu Zabaleta

Hamida, orrazia ilaian egokiturik, lasterka joan zen **amaizunaren** alboan esertzera. Patxi Zubizarreta

Berthe **amaizunaren** arroztasun politiko osoa azalaraziz, Veneziako kanalen ertzeko Loredan famili jauregi ederretik aldegin zuen. Txillardegi

---

amakeria *iz* amari dagokion egintza gaitsezgarria.

-Tira, utz ditzadan **amakeriak**; baduk nahikoa ama bakarraz. Josu Landa

---

amakide *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* **1** *iz* seme-alaba besoetakoaren ama; erditzen laguntzen duen emakumea. ik **emagin**; **emagintsa**.

Emagina, **amakidea**, emagintsa edo sortzaina erditze naturalean amari laguntzen dion pertsona da. Prozesua naturala ez denean, aldiz, ginekologoen laguntza behar dute. ETC-entziklopedia

Ba, bai jauna, andre Gloriak bere errain eta **amakidea** goraipatzen duenean... ETC-literatura, saiakera

Historialariek diote Gregorio V.ak Roberto erregea eskumikatu zuenean bere **amakide** zen Berta erregina esposatu izanagatik, erregearen morroiek leihotik bota zutela hari zerbitzatutako janaria eta Berta erregina antzara batez erditu zela intzestu-ezkontzaren zigor gisa. ETC-literatura, saiakera

Barakaldo antzokian izan dugu Shakespeare batez gozatzeko parada Las alegres comadres de Windsor (Windsorreko **amakide** alaiak) lanarekin. ETC-prentsa

---

amakoi *izond* amaren izatasunari dagokiona.

Hala ere, Adelaren jokabideak nahastu egiten ninduen; banekien beraren ideologiarekin bat zetorrela jokabide hura, bai, baina, nire maistrarekin izan nuen harremanak bestelako irudi bat eskaini zidan, askoz ere **amakoiagoa** eta espiritualagoa, arinkeriarik gabea. Juan Kruz Igerabide

---

amalaktar ik **amalektar**.

---

amaldeko **1** *izlag* ahaideez mintzatuz, amaren aldekoa. ik **aitaldeko**.

Hobe **amaldeko** amonaren antza balu, baina ez, esaera zaharrak dioen bezalaxe jaio da hau: kaleko edozein mutilen berdina, ez amaren edo aitaren moldean egina". Jose Morales

amal *(orobat **amalaktar** g.er.)* *iz* Palestinako hegoaldeko Negeb basamortuan bizi den herriko kidea.

Negebeko eskualdean **amalektarrak** bizi dira; mendialdean, hitiarrak, jebustarrak eta amortarrak; itsasaldean eta Jordan inguruan, berriz, kanaandarrak. Jose Antonio Mujika

Madiandarrak, **amalektarrak** eta basamortuko jendea, larrapoteak bezain ugari, lurrean etzanak zeuden; haien gameluak ere zenbatuezin hainbat ziren, itsasertzeko hondarra bezain ugari. Elizen arteko biblia

Mendialdean bizi ziren **amalektarrek** eta kanaandarrek haiengana jaitsi eta garaitu egin zituzten; Hormaraino jarraitu eta porrokatu egin zituzten. Jose Antonio Mujika

Refidimen **amalektarrek** eraso zieten israeldarrei. Elizen arteko biblia

-Aukera itzazu gizon batzuk, borrokara irteteko **amalektarren** aurka. Jose Antonio Mujika

Hil zenean, Piraton hirian ehortzi zuten, Efraimen lurraldean, **amalektarren** mendialdean. Elizen arteko biblia

---

amalgama *iz* merkurioaren eta beste metal baten aleazioa; *irud/hed* gauza heterogeneoen nahastura.

Hiru mugimendu bereizi behar dira: filosofi eskola banatuen **amalgamak**; erlijio banatuen **amalgamak**, adibidez, Israelgo erlijioaren adulterazioa auzoko kultuekin nahasteagatik, honi kontra egin ziotelarik, azkenean arrakastaz, hebrear profetek; eta filosofien eta erlijioen arteko **amalgama** edo sinkretismoa. Iñaki Mendiguren

Itun Zaharra -gero eta argiago erlijio eta historiaren aldetik meritu-maila desberdineko giza konposizioen bildumatzat, edo hobeto esanda **amalgamatzat**, ikusten zena- [...]. Iñaki Mendiguren

Iparraldean, Abertzaleen Batasuna eta Batasuna bereizi direnean ez da **amalgama** zehaztu. Itxaro Borda

Mendebaldeko Kristandadean buru- **amalgama** heleniko hori erabat nagusitu zen hamabigarren mendean Aristoteles "hartuta" berrindartu zenean. Iñaki Mendiguren

amalur *iz* gizakiak bizi diren lurra.

Brigida hau zeltiarren **amalurra** ordezkatu zuena bide da. Pello Zabala

Udazkenean erne, ikusiko duzu nola suge guztiak erretiroa hartuta dauden, lizarrak bere hostoak bota aurretik... Jakintsua baita gure **amalurra**! Pello Zabala

---

amalurtar *izond* amalurrarena, amalurrari dagokiona.

Hizkuntza sexistaren polizia bihurtutako printxexita, edo dela jatorrismo **amalurtarraren** apaiz estralurtarra. Iñaki Segurola

---

amama 1 *iz* amona. ik **amandre**; **amañi**; **amaso**; **amatxi**; **amatxi**; **amiña**; **amagoi**.

Amama asko ilobak zaintzera behartuta daude, halabeharrez. Berria - Harian

Laster aitaren gurasoak, aitaita eta **amama**, etorri dira. Urtzi Urrutikoetxea

Aittitte eta **amama** bizi ziren baserri hartara ailegatu eta Goiok bazekien entzungo zuen lehenengoa. Joseba Sarrionandia

Attatta bati doakio (**amama** bati bezala) arrahaurrer mintzatzea, bizitzean baliosenik zaitzon gaüzen eta "baloreen" aipatzeko. Herria

Sinesgaitza da horrelako itxurarekin gurasoak eta aitaita-**amama** guztiak irandarrak izatea, baina egia da, eta gainera Nasser harro sentitzen da bere jatorriaz. Jon Arretxe

Zuek ez dakizue, baina nire aitite-**amamak** eta nire bi izeko Gernikako bonbardaketan hil zituan orain dela hogeita hamahiru urte. Bernardo Atxaga

Amamak eta aitak sesio izugarriak izaten zituzten hura zela-eta. Mirentxu Larrañaga

Batera bizi ginen aitita eta **amama**, **amamaren** bi ahizpa ezkongai, ama, neure osaba aitabitxia eta neu. Ana Urkiza

Ama goizik hil zitzaien eta **amamaren** gonetan hazi ziren mutikoak. Itxaro Borda

Amaren izeba zen, baina **amama** esan geniezaion tematu zitzaigun beti, uste baitzuen izeba zahar deiturak adintsu eta muker bilakarazten zuela; izan, mukerrontzia zen, ordea. Mirentxu Larrañaga

Hantxe moilan Indalexioren txokoloei begira dago **amama** Desideria. Edorta Jimenez

Etxeko inork ez zuen behin ere ongi hitz egin Koronelari buruz, **Amama** Otsok izan ezik, jakina. Mirentxu Larrañaga

Bazekarren hark marrazki bat, Charliek eta biok ondo ezagutzen genuena, otsoa ohean sartuta eta Txano Gorritxoren **amamaren** itxurak egiten irudikatzen zuena. Mirentxu Larrañaga

Handik aurrera, **amamarenera** joaten zen bakoitzean, beti egiten zuen keinu hori. Iñaki Iñurrieta

Hor datorkie herriko **amama** xahar bat, aldizkaria eskutan, begiak malkotan. Xabier Mendiguren Elizegi

Buda Amandrea ematen du galipotezko ama edo **amama** dirdiratsu horrek, koloretako painelua buruan eta zirrindola doratuak belarrietatik dilindan. Joseba Sarrionandia

Hilaren hamalauan hasi nintzen Tomentzat lanean, Harryren errautsak Prospect Park-en barreiatu eta Rufus etxera bere **amama** jamaikarrarengana joan zen egunaren biharamunean. Oskar Arana

Nire **amama** zenari laguntzen nion lan honetantxe txikia nintzenean. Hasier Etxeberria

Gauean ***Amama*** *Luisa Brass Band* jazz taldearen kontzertua. Herria

2 *aitaita-amama*

Sinesgaitza da horrelako itxurarekin gurasoak eta **aitaita-amama** guztiak irandarrak izatea, baina egia da, eta gainera Nasser harro sentitzen da bere jatorriaz. Jon Arretxe

3 *aitita-amama*

Kasu bat aipatzearren, Agustin izeneko bere lagun baten **aitita-amamak** eta bi izeko bertan hil zirela, eta zer nahi zen horrelako aurrekari batekin, zer espero zitekeen Agustinengandik, hilarrietan euskaraz idaztea ere galarazita zegoen giro batean. Bernardo Atxaga

Ikaskide guztiek alde egiten zuten aroa zen: bigarren edo hirugarren etxeetara, gurasoen jatorriko herrietara ere bai, batek edo bestek **aitita-amamaren** baserrian baitzeukan hiri erdaldun honen beste muturrean zegoen Lurreko paradisua, eta bazen inori esan barik al pueblo joaten zenik ere. Urtzi Urrutikoeetxea

Bai, ordea, "amandre-aitajaun" eta "**aitita-amama"rik**. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aitite amamak** (3); **amama eta** (3); **amama luisa brass** (4); **amama otso** (20); **amama otsok** (18); **amama otsok ez** (3); **amama otsoren** (4); **amama otsori** (3); **amamak eta** (4); **de amama** (3); **eta amama** (22); **eta amama otsoren** (4); **eta amamaren** (4); **gure amama** (3); **zen amama** (3)

---

amamatxo *iz adkor* amama.

Garizuma luzeaz mintzatzen inor ausartzen bazen, han izango zen supazterretik **amamatxoa**: Bai, garizumaren laburraz ditu penak Pazkoz urkatu behar denak. Pello Zabala

Lekeitioko **amamatxoren** baten errieta-kutsua daraman beste hau ere bai: San Antonio, San Antonio! txarrixa gaixo danian. Pello Zabala

---

amamin *iz* amaren falta nabaritzea.

Pentsa, hi, hondartzan bainatzen garanian, **amaminez** jarduten juagu, bular goxuaren esnetan blaitu nahiak eramaten gaitik horretara. Iñaki Iñurrieta

Amamina? Xabier Mendiguren Elizegi

---

amanda[1] *iz ipar* isuna.

Bakoitzak pagatu beharko ditu 300 euro isun (**amanda**), hots 18 600 euro hor berean. Herria

Penizilina buatak, zakutraka eremanak, kentzen zitxien fea futro eta **amanda** edo zigorra pollita emaiten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ni **amandak** ordaintzen oso zintzoa naiz. Gotzon Garate

---

amanda[2] *iz ipar* arbendola, almendra.

Fruitutegi lekuak dira gero, edozoin mota milaka hektaraka, **amandaren** bil sasoina zen bete betean, tresnaz bil bixtan da eta kamiuntaraka karrea, kanpoan usinetan metatzen dituzte xuka diten, gero lan egiteko. Herria

Begi beltxak, finak, arbendolen **amanda** forman eztiki marraztuak. Ramuntxo Etxeberri

Buru angelua, **amanda** begiak, sudurrik ez, kokotsa eskas eta ahoa hertsia. Itxaro Borda

Lo arrastoak begi inguruetan, **amanda** itxura areagotzen. Iñaki Iñurrieta

---

amandre 1 *iz* amona.

hotz dago kalean, eta hotz dago etxean ere, salbu eta sukaldean, ekonomikari esker, eta ohean, sutan goritutako adreilu bat jarri baitu amak -edo **amandreak** , ez dakit hori-, izarapean, oinen parean. Joxerra Garzia

Egun batean, **amandrea** hil zen, eta lehenengo solairuan hark zuen gela hartu zuen Nunuk, eta haren eginkizunak ere bai. Ander Irizar

Jenialtasuna behin-betiko dohaina zen, ipuinetako **amandreek** makila miresgarriaren ukituarekin eransten zituztenak bezalakoa. Bernardo Atxaga

Gure **amandre** Dominika zenak, Madrilen markesa baten etxean zerbitzen ari zela, tu-ka egin zien behin ate-joka etorritako handiki usteko batzuei. Joxerra Garzia

Negarrez joan zitzaion **amandrea** markesari: [...]. Joxerra Garzia

Gure amaren ama zenari **"amandrea"** esaten genion guk, eta "aitajauna", berriz, amaren aita zenari. Joxerra Garzia

- **Amandrearen** oparia dik Bittorrek! Koldo Izagirre

2 irud/hed

Eguzkia **"amandre"** da euskal tradizioan. Joxerra Garzia

Eguzki **amandrea** joan da bere amagana eta bihar etorriko da, denbora ona bada. Pello Salaburu

Arratsalderako argituxe, eta juxtu egunari agur esateko orduan atera da **Amandre** Zuria lainopetik, Ulimendiko kaskoan, eta ni, ilunabar askotan bezala, herri inguruko estartaz estarta, inozentzi galduren baten bila nabilela, ustekabean harrapatu nau. Patziku Perurena

Baditu bereak **amandre** honek, zein alditan dabilen kontuan izanik: Eguberri ilargiakin, artzaia axuriakin. Pello Zabala

Bourboulon andreak kontatzen duenez, hango marinelen arabera, "itsaso **amandrea"** dei diezaioten nahi du. "Aintzira jauna" deituz gero, ernegatu egiten da berehala. Karlos Zabala

Zenbaitek ziok ezen, gure Salbatzailearen jaiotza ospatzen deneko sasoi hori hurbildu ahala, gau osoan diharduela kantari egunsentiaren hegaztiak; eta orduan, diotenez, ezein izpiritu ez duk ausartzen irtetera, gauak sanoak dituk, planetek ez ditek makur jotzen, ez **amandreek** ez sorginek ez ditek xarmatzeko ahalmenik, hain duk bedeinkatua eta graziaz betea aro hori. Juan Garzia

3 ***amandre ipuin***

Sutondoko ipuinak **"amandre** ipuinak" dira. Joxerra Garzia

Pontito baketsu bat, denboraz kanpoko "antzina" batetik eskegia; hots, alegoria, fantasia, mito eta **amandre** -ipuinetako "behin batean" moduko batetik. Xabier Olarra

Jamesi **amandre** ipuinak irakurtzen aritu zen, esan zion emazteak. Anton Garikano

Oihartzuna mututu, ordea, eta berriro **Amandre** Ipuinera itzuli zenean, Ramsay andrea ez zen sentitu gorputzez bakarrik nekatua. Anton Garikano

4 ***ilargi amandre***

Atarian eserita, izarrei eta **ilargi amandreari** begira. Aitor Arana

Xarma berezia dizu **ilargi amandreak** horrelakoetan. Pello Zabala

Ilargi amandrea , zeruan zer berri? Pello Salaburu

-Gu biok eta **Ilargi Amandrea** . Koro Navarro

· Ilgora eta ilbehera, hortxe dabil gizendu eta flakatu, bete eta hustu gure **amandre ilargia** . Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amandre ipuinetako** (5); **eguzki amandrea** (4); **ilargi amandre** (3); **ilargi amandrea** (4); **ilargi amandreari** (3)

---

amaneratu *izond* naturaltasunik gabea; emagizonen manerak dituena.

Danelek hain gustukoa zuen dotorezia **amaneratuaz** . Anjel Lertxundi

Edozein modutan, Adak **amaneratutzat** zeuzkan Danelek urtean bizpahirutan Ifarkoia hotelean antolatzen zituen gure festa haiek, eta ez zitzaion jolas haietako ur dekadenteetan txapla-txapla ibiltzea gustatzen. Anjel Lertxundi

Beste haurrek barre egiten zuten halakoetan, maisu ankerraren jokoari jarraiki, baina nirekin sartu zen hartan inoiz baino grazia handiagoa egin zien besteei ni poesia-kontu "arraro" eta "erdi maritxu" haiekin barregarri uzteak; maisu beldurgarriak imintzio **amaneratuak** egiten zituen, bat-bateko piztia-pailazo bikoitza bihurturik, eta denak barrez lehertzen ziren nire bizkar eta bide batez maisuaren beraren bizkar, ez dago-eta ezer barregarriagorik beldurra ematen digun norbait pailazoarena egiten ikustea baino. Juan Kruz Igerabide

Haren itxura -haren hautsak eta azazkal luze zainduak- itxura hutsa baino gehiago zen, bestalde, izatez ere **amaneratuegia** baitzen, nire gusturako. Joan Mari Irigoien

Hor, hondarribitar guziak mantzokara bilduta, valenzianoek ohi dagiten mairu eta kristau arteko liskar aizun **amaneratu** bezalako bat egin dezakezue. Patziku Perurena

---

amañi 1 *iz* amona.

Allikeneko bi amona zaharrak hil zirenean, ni umea nintzelarik (**Amañi** Gaxuxa eta amana Ixone, alegia), ez nuen nik urrundik ere halako tristurarik sentitu. Txillardegi

2 ***amañi lili***

Loreen artean bizi zen; arrosek, **amañi liliek** , ahuntz prakek, mugetek inguratzen zuten. Karlos Zabala

Lorategiko **amañi-lili** eta otsagereziondo loretsuak patio osoa inguratzen zuten urki lirainetaraino iristen ziren, lore-uztai edo beira-alezko iduneko baten antzera, eta nonahi aditzen zen haien urrina. Jose Morales

Belaze pixka bat, **amañi-liliak** loretan, dorre pare bat lorez eginak, agian fuksiak edo pentsamenduak edo krabelinak. Anton Garikano

---

amañilili *(orobat* ***amañi-lili, amañi lili,*** *eta* ***amiñi lili****)* *iz* lili edo lore mota *(lilas siringa).*

Itxura negargarria zuen jauretxe eder hark; baratze abandonatuan, **amañililiek** beren adar hautsiak erakusten zituzten, eta lurrera iristen zen, hautsita, ezki bikain baten adar handienetako bat. Koro Navarro

Apirilaren 20-25 bitarte horri, Espainia aldean **amañililien** udalditxoa deitzen zaio; alegia, lila edo **amañilili** lora horiek, sasoi inguru honetako beroalditxoari esker loratzen eta zabaltzen omen dira: panpoxa-panpoxa azaltzen dira **amañililiok** . Pello Zabala

Eman dizkioten opariak: bi zigarro pakete, katilukada baterako adina kafe, bere emazteak gordeak; Kuglerrek limoi puntx bat, Miepek sardinak, guk kolonia ura; horrez gainera bi **amañilili** sorta, tulipanak, tarta bat masusta gorriz eta andere-mahatsez betea. Josu Zabaleta

Sasiamen eta **amañilili** laharren usainak. Oskar Arana

Loreen artean bizi zen; arrosek, **amañi liliek** , ahuntz prakek, mugetek inguratzen zuten. Karlos Zabala

Loreen artean bizi zen; arrosek, **amañi liliek** , ahuntz prakek, mugetek inguratzen zuten. Lorategiko **amañi-lili** eta otsagereziondo loretsuak patio osoa inguratzen zuten urki lirainetaraino iristen ziren, lore-uztai edo beira-alezko iduneko baten antzera, eta nonahi aditzen zen haien urrina. Karlos Zabala

Biak ziren garesti-garestiak; zortzi edo hamar **amiñi lili** moztuz egindako sorta batek hamabost liberatik hogeira bitartean balio zuen neguan; eta kameliak are garestiagoak ziren, dozenaka iristen ziren azokara, kutxa batzuen barruan, goroldiozko ohatze batean paratuak eta kotoi orri batez estaliak. Karlos Zabala

---

amanita *iz Amanita* generoko onddoa, esporak zuriak dituena eta espezie jangarriak eta pozoitsuak ematen dituena.

Aita onttoekin hasi, gibelurdinekin jarraitu, eta **amanitekin** bukatu zuen. Joan Mari Irigoien

amankomun 1 *iz* pertsona edo gauza bi edo gehiagok dutena. ik **komun**[2].

Oteizaren lanak antzera interpretatu eta maitatzeak nahikoa oinarri **amankomun** emango digu? Berria - Kultura

Puntu **amankomunak** hor egon daitezke: Irlandan gakoa izan zen, eta Quebecen ere hala da. Berria - Euskal Herria

Orain, ulerkaitza izan daiteke pentsatzea euskal gehiengo sindikalak ia hogei urte behar izan zituela lan **amankomunari** ekiteko. Berria - Ekonomia

Hizkuntza eta kultura **amankomun** dugu, antropologiako ezaugarri **amankomun** bat baino gehiago ditugu. Berria - Kultura

PPk eta PSOEk "planteamendu **amankomuna** " dute: "Zapaterok gauzak aldatu behar zirela iragarri zuen, eta momentuz Irakeko tropak baino ez ditu mugitu". Berria - Euskal Herria

Halatan, ondoko astean berean, apartamentu **amankomuna** alokatu zuten Baionan eta geroztik, mundu osoa lekuko, bikotea osatzen zuten. Itxaro Borda

SCOT horiek frantses administrazioak pentsatuak ditu, ondotik osatuko diren herri elkargo azkarren proiektu **amankomunak** pikoan emaiteko. Herria

Abertzaleek bide bat aurkitu behar dute jarrera amankomun batzuk finkatzeko gisan, hautagaitza **amankomunak** osatzen. Berria - Euskal Herria

Interes eta elkartruke **amankomunarekin** bat eginda dagoen nazio eta mundu zibilizatua osatzen duen nazioen gizarte unibertsal guztia. Iñaki Heras

Ardura: Erredaktore buru lana, 3 irratietako kazetari ekipoaren zuzendaritza, informazio sail **amankomunen** kudeantza, gaien aurrikuspena, erreportaia. Patxi Ezkiaga

Ondotik, IRRATI EMANKIZUN **AMANKOMUNA** : 30 irratitan zuzenean. Herria

Ez da jarrera **amankomunik** . Berria - Euskal Herria

Hizkuntza oro sinbolo-alfabeto bat da eta, baliagarri izan dadin, ezinbestekoa da solaskideentzat **amankomuna** den iragan bat. Juan Garzia

2 ***nukleo okulomotore amankomun*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***4*** *agerraldi)*

bikote kranealaren nukleoa edo **nukleo okulomotore amankomuna** , mesentzefaloan, goiko kolikuluen mailan, kokatzen den nukleoa da. Mesentzefaloaren akueduktuaren inguruko gai grisaren aurrealdean kokatzen dira. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amankomun bat** (3); **amankomunean duten** (3); **guztiek amankomunean** (6)

---

amankomunean *adlag* elkarrekin. ik **komunean**.

Gelatxo ilun bat eta sukaldea, bigarren estaian; eta komuna eskaileran, gainerako maizterrekin **amankomunean** . Txillardegi

Erakutsi dugu, alabaina, nahimena izate unibertsal bat dela, erran nahi baita, nahi izate singular guztiak edo nahi izate guztiek **amankomunean** dutena azaltzen duen ideia. Piarres Xarriton

Hemen arimak ez du ezer **amankomunean** beste gauzekin; hemen gizakia Jainkoaren irudira moldaturik dago, jainkozko jatorria du eta Jainkoaren familiakoa da. Joan Mari Lekuona

Semea berdin Izpiritu Santuarekin, Aitarekin **amankomunean** duten esentzia. Joan Mari Lekuona

Guztiek **amankomunean** zituzten bi ezaugarriak kasta eta espezializazioa izan ziren. Iñaki Mendiguren

Bakarka pentsatu ostean gure gogaiak **amankomunean** jartzea izango zen egitekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Hasierako bisitetan, irteeran egundoko inpotentzia sentitzen zenuen, haserre izugarria, baina bisitetara joaten ziren lagunekin **amankomunean** gainditzen zenuen hori guztia. Jokin Urain

Aldaketak asko eta garrantzitsuak izan dira F2001 hartaz geroztik, baina guztiek ere bazuten zerbait **amankomunean** . Berria - Kirola

Izan ere, "guztiok dugu zerbait **amankomunean** : etorkizuna erabakitzeko ezintasuna". Berria - Euskal Herria

- **Amankomunean** daukagun ontasun handiena bakartasuna dela jakitea onuragarria da... Itxaro Borda

Trogloditen herrialdea zeharkatu genuen, sugetzarrak irensten dituzten eta hitzezko harremanik ez duten jendeak; garamantena, emakumeak **amankomunean** baitituzte eta lehoiez elikatzen baitira; augilena, Tartaroa baizik ez baitute gurtzen. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amankomunean duten** (3); **guztiek amankomunean** (6)

---

amaño *ipar iz* inudea.

Luhuson sortua, luhustarra zen beraz Piarres Lafitte herri hortan biziki denbora guti baizik ez balinbazen ere bizi izan, laster **amaño** baten ganat igorri baitzuten Senpererat. Herria

Zer balio du gure mendebaldeko gizarte hunek bere burrunba eta denbora eskasekin? bere haurrak eta xaharrak utziz estadoaren eta bertzen gain, batzu ezarriz haurtegi eta **amañoetan** , bertzeak aldiz xahar etxe, ospitale, SAMU edo Su-hiltzalen gain, batzu eta bertzeak poxulutik kenduz. Herria

---

amantal ik **mantal**.

---

amantaldun ik **mantaldun**.

---

amantaltxo *iz* mantaltxoa.

Friburgoko modara zituzten jantziak: luzeak, beltzak eta estuak; oinetako beltzak, eta galtzerdiak zuriak; gero bazuten **amantaltxo** marroi bat, lepotik albotara dena bordatua. Josu Zabaleta

---

amante *iz* maitalea.

Emaztea eta **amantea** biak batera maitatzen zituela edo 1947an idiak saldu eta traturra erosi zuela; berritasunaren bila zebilen beti. Itxaro Borda

Pio-pioka hasi zen behialako emaztea, senarra utzirik ezagutu zituen **amanteen** zerrenda eskainiz -batzuek duten suertea! Itxaro Borda

Gauak esna ematen ditu, bere ama eder eta itsua, eta bere **amantea** , hain zuzen ere aitaordea zuena, hil zuen hura bera, behin eta berriro gogoan erabiliz. Pablo Sastre

Di Maggio eta Arthur Millerren emazte baliatua, JF eta Bob Kennedy anaien **amante** purtzilikatua, ondorioz CIA eta KGBk kontrolatua. Itxaro Borda

Von Schratten, aktoresa, enperadorearen **amantea** , batzuen ustez Vienako emakumerik ederrena, denbora batean. Pablo Sastre

---

amaorde *iz* amarik ez duen pertsona baten aitaren emaztea. ik **ugazama**.

Etxean sartzean, aita eta **amaordea** mahaian topatu ditut. Urtzi Urrutikoetxea

Epaile berriak aginduta, Beatrice, Lucrezia -Beatriceren **amaordea**-, Giacomo -neba- eta Bernardo -hamabi urteko neba gaztea-, Savellako kartzelara eraman zituzten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Amaordeak esan diona gogoratu zaio: kasu, txurien mundua oso diferentea da! Pablo Sastre

Orduantxe jo du txirrinak: **amaordearen** ahizpa eta ama sartu dira. Urtzi Urrutikoetxea

Amaordeak mukia ere urrezkoa omen du, baina neska gaixo hori, alabaizuna izateagatik, hemen gurekin! Anjel Lertxundi

Aita lanik gabe gelditu zen eta **amaordearekin** batera semea jotzen zuen. Gotzon Garate

Badakit, diskurtso hau markatzen ari naizen neurrian, **amaordearen** papera hartzen ari naizela, eta nik, zalantza gabe, amandrea izan nahi dut. Ana Urkiza

Bera ordea tematuta dago aitari "nagusi" eta **amaordeari** "andere agurgarri" deitzen, ezer gertatu ez balitz bezala, eta eskuan muin ematen jarraitzen du. Urtzi Urrutikoetxea

Eta bertze zerbait ere erran nahi dizut: ama deitu izan dizut orain artean, baina jakizu ezen ez zaitudala amatzat hartzen ez **amaordetzat**, hemendik aitzina! Joan Mari Irigoien

Horrelako desengainu txiki bat onartzen ez badaki, zer **amaorde** klase izango da Lucyrentzat? Oskar Arana

Poliziari deitu zion, zarataka ari zirela goiko pisuko auzokoak, ezin zuela loak hartu, madarikazioak bota zizkiotela berari eta Eliza **Amaordeari**, eta kopa bat txanpain jaurti ziotela. Unai Elorriaga

Ez zitzaien Juvenalia oztopo, Ariannak, **amaorde**-agintea baliaturik, Varsoviajo moja-etxean betiko uzteko asmoa baitzuen, bizitzan hilobi emateko alegia. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aita eta amaordea (3); **amaordea ere** (3); **amaordeak ez** (3); **amaordearen ahizpa** (3); **eta amaordea** (4)

---

amaordeko 1 *iz* amaordea.

Pepin hil zenean 714. urtean, haren emazteak, "benetakoak", bahitu egin zuen Charles Martel, baina Charlesek ihes egin zuen **amaordekoaren** atzaparretatik eta Austrasiako gortera joan zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hantxe ikusi behar izan zuen **amaordekoari** egin ziotena: bere aurrera eraman eta sokaren tormentua egin zioten hari ere, eta besaburuak bere lekuetatik atera arte eduki zuten esekita Beatriceren aurrean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Senar batek emaztea galdu badu, haren ahizparekin ezkontzen da; eta hori oso naturala da; izan ere, emazte berria ahizparen seme-alaben ama bilakatzen da, eta hartara han ez da **amaordeko** bidegaberik. Iñaki Iñurrieta

2 *izond (irud/hed)*

Horrela izan zitzaion posible zendutako gizon ospetsuaren iloba bakarrari, Carlos Araujori, ia zuzen-zuzeneko oinordekoa gertuagoko senitartekoak artean ezagunak ez ziren neurrian, zendutako gizon ospetsuaren gehiegizko laudorioa egitea, neurrigabe goraipatuz haren langile bizitza prestua, lur **amaordeko** baina betiere maitatuarenganako dedikazioa, herriarekiko maitasuna. Bego Montorio

---

amapola *(ETCn **60** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **mitxoleta** agertzen da; ETCn **382** agerraldi) iz* belar landarea, zurtoin zuta eta kolore gorri biziko lore handiak ematen dituena *(Papaver rhoeas)* . ik **mitxoleta**.

Ibil dadila haizea; **amapolak** hazia zabaldu eta txerta daitezela krabelina eta aza. Anton Garikano

Norbaitek **amapola** bat jaurti zuen hilkutxaren gainean. Aritz Gorrotxategi

Cardosok **amapola** sorta bat jaurti zuen hilkutxaren gainean. Aritz Gorrotxategi

---

amaranto *(corpusean ez dago; ETCn **49** agerraldi) iz* Amaranthus generoko landarea

"Amaranthus" generoa **amaranto** izenarekin ezagutzen diren hainbat espezie barne hartzen dituen belarren talde kosmopolita bat da. Egun itxura guztietako 60 espezie inguru ezagutzen dira. ETC-entziklopedia

Amaranto koloreko arrasozko ohazala, Holandako oihalezko izararen toles zuriarekin, gerri pareraino iristen zaio. ETC-literatura, saiakera

Begiak itxi orduko Andereraren aurpegia agertzen zitzaidan; haren begi aintzira-kolorekoak, masail joriak, **amarantoz** margotuak iduri, ile kizkur bakanak. ETC-literatura, saiakera

Hurbileko ahaidetasuna duten espezieek elkar ordezkatzen dute geografikoki, **amarantoen**, babarrunen, kenopodioen, txile piperminen, kotoien, kuien eta tabakoen kasuetan. ETC-literatura, saiakera

Guk ezagutu gabeko zereal-zorro batzuk ere ekarri zituen: artatxikia, gari sarrazenoa, espelta, **amarantoa**, garagarra... ETC-literatura, saiakera

Eguberrietako afarirako, Varsoviako gutiziak prestatzen dituzte sukaldari boluntarioek: barszcz bero-beroa, **amaranto**-kolorekoa, aza txanpiñoiekin, broxeta beteak, mitxoleta-haziekin egindako pastelak, vodka pixka bat eta tea barra-barra... ETC-literatura, saiakera

Garia eta **amarantoa** lantu ditu eta egun hauetan gure aren arteko loturak sendotzedatzen eta merkaturatzen dituzibarrean izan da Debagoiena eta ko asmotan. ETC-prentsa

Duela zenbait urte **amaranto** ogia saltzen genuen, adibidez. ETC-prentsa

Onartuta dauden beste koloratzaile batzuk ere (laranja-hori, E-110; **amaranto**, E-123) hipersentiberatasun-erreakzioekin erlazionatu dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amaratu, amara(tu), amaratzen da *ad* desegin, eragabetu.

Dagoeneko murgildurik ikusten du bere burua, kilometrotik kilometrora **amaratuz** joango den karabana baten hondamenean. Josu Zabaleta

---

amaraun 1 armiarma sarea.

Odol-jarioa eteteko, **amaraun** bat jarri nahi zioten; Espinosak pastila batzuekin sendatu zuen. Juan Garzia

2 irud/hed

Zer egin, bada, giza-euliok, **Amaraun** ezinbestekoan galdu arte? Juan Garzia

3 *amaraun sare*

Leiho gehienek zeuzkaten **amaraun sareak** gortinen ordez. Koldo Izagirre

Garrüzeko gazteluzaina harro dago bere **amaraun-sare** tikiaz. Aingeru Epaltza

Baina halaxe nuen gogoa, gela ilun bateko **amaraun-sare** sarriena esku-kolpeka kentzen baino kirio-joago. Anjel Lertxundi

4 *amaraun topologia (corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Amaraun topologia eta beste topologia bat uztartzean topologia hibridoa eratzen da. Hedapen zabaleko sareek **amaraun topologia** dute, Internet esaterako. ETC-entziklopedia

---

amaraundu, amaraun(du), amarauntzen du *ad irud/hed* amarauna bezala ehundu.

Baina begiraleek noizbehinka egoeraren kontrola galdu dezaketenez, begiraleen buruak -Zuzendari txit agurgarri lepamotzak-, bere bulegoko leihoan egiten du egun osoa, dontsuren bat konspirazioren bat **amarauntzen** noiz harrapatuko, eta zinez diot inork ez bezala betetzen duela lan eskerga eta eskergaitz hori. Anjel Lertxundi

---

amarauntsu *izond* amaraun asko dagoena.

Kaioen eta gainerako hegaztien hegaldiak nekatu eta astuna dirudi; denborak astiroago egiten du aurrera, gela **amarauntsu** bateko sarea urratuz ari balitz bezala; isiltasuna ere oro kolore-berdintzen duena izan ohi da halakoetan, bat eta erabatekoa. Anjel Lertxundi

Zeren zuhaurk ere imajina baitezakezu, hango ibai-adar lohitsuetan eta hango baso **amarauntsuetan**, ni neure hanka herrenarekin arrastaka, behin baino gehiagotan biluz eta ortuz, ez aldatzeko atorrarik eta ez etzateko oherik, atsekabearen bide meharrean gaitz eta penos, deserosotasuna eta gabetasuna egunorozko bisitari bagenitu bezala, eskuak eta oinazpiak maskurturik eta ikorzirinez josirik. Joan Mari Irigoien

---

amargatu, amarga(tu), amargatzen du *ad* pertsonez mintzatuz, mingostu.

Eta laguntzen ez bazion, kapaz zela bera, Santos, inguruko guztiak **amargatzeko**; horregatik esan zuen azken esaldia jenioz eta horregatik esan zuen azken esaldia zakar. Unai Elorriaga

Gizonak zakarraldiren batean emakumea jotzeko keinurik egiten badu, heriotz mehatxu garbia izan dela erakutsiko dio abokatuak; emakumeak gizona **amargatzen**, pozointzen edo akatzen badu, berriz, jakina, bere buruaren defentsan beti. Patziku Perurena

---

amarikonatu, amarikona(tu), amarikonatzen da*/du ad* marikoien erak hartu.

-Baina umetatik **amarikonatu** nahi duzue mutila ala...? Joan Mari Irigoien

Huraxe zen aitak nirekin izan zuèn kezka nagusia, antza, nire lehen urte haietan: ea inguruko jendeak **amarikonatuko** ote ninduen... Joan Mari Irigoien

---

amarnar *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) izlag* Tell Al-Amarnari dagokiona.

Meritaton-Tasherit Egiptoko XVIII. dinastiako printzesa izan zen, zehazki, **amarnar** deritzon garaikoa. ETC-entziklopedia

Bere edertasuna oso ospetsua izan zen, eta badirudi politikan eta erlijioan funtsezkoa betebeharra izan zuela tell al-Amarna **amarnar** ideologiaren garapenean. ETC-entziklopedia

---

amarra **1** *iz* lokarria, lotura, batez ere itsatsontzietan.

Gogotik ahalegindu zen haiek kentzen, baina ondotxo zekien noiznahi astin zezaketela, zeukan **amarra** -lekua moztu eta berari berriro bidali txoriak txioka ile artera. Anton Garikano

Eta ilunantz goibel haien barrenean, edo banku hotz haietan, **amarrak** hautsi eta jitoan doan itsasontzian bezala sentitzen ginen. Fernando Rey

Trokola eta tiratzeko **amarrak** goian esan bezala erabiliko dira. Santiago Iruretagoiena

Baina, **amarrak** askatzen ari ziren unean bertan, Alcide Jolivet agertu zen lasterka bizian. Karlos Zabala

2 irud/hed

Gorputza laxatzen zitzaidala zirudien, eta edozeren aurrean amor ematen zuen malgu; bere **amarrak** askatuak zituen, eta edonor jolas zitekeen berarekin, trapuzkoa balitz bezala. Juan Garzia

---

amarrain ik **amuarrain**.

---

amarraleku *(corpusean ez dago; ETCn **74** agerraldi) iz* itsasontziak eta kidekoak amarratzeko lekua. ik **atrakaleku**.

Moilatik, saltalekura egiten zuen jauzi melodiak, eta arrain txikitara zihoan arrantzalea ere konturatu gabe hasten zen kantari, batel gorria **amarralekutik** askatzen zuen bitartean. ETC-litezien

Portu gaineko etxeen segidak fatxada gorriak eta horiak zituen, inoiz haiei erreparatu gabe zegoela pentsatu zuen eta haiei so gelditu zen, txalupa baten soka lotua zegoen burdinazko **amarraleku** batean eseri zen. ETC-literatura, saiakera

Hauxe, hortaz, niretzako moduko **amarralekua**. ETC-literatura, saiakera

Amarraleku batean eseri nintzen. ETC-literatura, saiakera

Han daude zume negartiak, musikarako kioskoa eta **amarralekua**, eta han hartzen da ur-ertzeko herrixketara joateko ontzi zaharkitua: Veyrier, Chavoines, Saint-Jorioz, Eden-Roc, Port-Lusatz... ETC-literatura, saiakera

Askitan zanbuilatu ostean, moilako burdinazko **amarraleku** beroen gainean jartzen zen gorputza epeltzeko. ETC-literatura, saiakera

Lan istripua Pride of Bilbao ferryaren **amarralekurako** hormigoizko kutxak eraikitzen ari diren lanetan gertatu zen. ETC-prentsa

Hala ere, kirol itsasontzientzat **amarraleku** berriak sortzea aurreikusi du, jada eginda dauden azpiegiturak baliatuz. ETC-prentsa

Herenegun belaontzi bat **amarralekutik** askatu zen eta arrokak jo zituen, Donostiako Klub Nautikoaren inguruan. ETC-prentsa

1985etik 2006ra 1.280tik 4.823 handitu da Bizkaia eta Gipuzkoako kirol portuetako **amarralekuen** kopurua. ETC-prentsa

Gainera, portuko **amarralekua** ere ordaindu behar da. ETC-prentsa

Gipuzkoako eta Bizkaiko kirol portuetan dauden **amarralekuak**. ETC-prentsa

Pasaiako portuak 421 aisia **amarraleku** izango ditu . ETC-prentsa

Eusko Jaurlaritzak kudeaturiko portu honek guztira 145 **amarraleku** ditu. ETC-entziklopedia

Eraikinaren jatorrizko ezaugarri bereizgarrietako bat izan zen gailurreko mastan baloi gidatu zepelin aireontzientzako **amarraleku** eta geltokia. ETC-entziklopedia

---

amarratu, amarra(tu), amarratzen du *ad* sokez, kateez edo kidekoen bitartez sendo lotu. ik **atrakatu**.

Arrantzaleak, ontzia ondo **amarratu**, loihartzekoak aldatu eta tabernara joaten ziren. Joseba Sarrionandia

Txalupak konfiskatu eta finko jarri zituzten bata bestearekin **amarratuz**, gainditu ezineko oztopo pila eratzen zutela. Karlos Zabala

---

amarratze *iz* sokez, kateez edo kidekoen bitartez sendo lotzea.

200 bat **amarratze** zain zeudela esan ziguten. Berria - Euskal Herria

amarru 1 *iz* maltzurkeria, azpikeria.

Engainuaren **amarrua** batzuetan ondo ateratzen da, eta besteetan ez hain ondo. Rafa Egiguren

Gedeonen **amarrua** edo engainabidea. Elizen arteko biblia

Ez zen dirua lortzeko **amarrua** izan: benetan egin nahi nuen ikerlan hura, baina dudarik ez dago primeran etorriko zitzaidala Udalak emango zidan milioia. Xabier Mendiguren Elizegi

Zuen **amarru** horrek huts egin dizuelako, Gordon. Oskar Arana

Ez zioat utziko ni harrapatzen sedukzioaren **amarruarekin** ! Fernando Rey

Hori ikusirik, Larraondok **amarru** bat prestatu zuen. Martin Anso

Amarru bat prestatzea ere bururatu zitzaidan, amu bat ipintzea, zerbait argi eta garbi jakiteko. Juan Kruz Igerabide

Agamenon itsasoan gorriak ikusita jauregira itzuli zenean, Egistok hil egin zuen **amarru** batez, eta haren lurretan agintari jarri zen. Juan Kruz Igerabide

Alchonon hori morroi lizuna zen, **amarru** zorrotz bihurriez betea. Koro Navarro

Haren baretasuna **amarrua** baizik ez zen ordu arte harrapa ezina zuen etsai urruna ondora ekartzeko. Josu Zabaleta

Pentsatzen eta planak egiten ari zen, bere adimen aski zorrotza erabiltzen gure asmo guztiak azpikoz gora jarri eta bere patua bere esku utziko zuen **amarru** bat bilbatzeko. Oskar Arana

Kolonek, orduan, indiarrak zentzatzeko **amarrua** asmatu zuen. Martin Anso

-Deabruaren **amarruak** kontaezinak dira, ordea, eta horregatik, leku batean egonik, bitan ere egon daiteke. Joan Mari Irigoien

Delituaren bila dabil presoarengan, **amarruak** jartzen dizkio, eta galdu egin duela pentsatzen du helburua lortzen ez badu, eta kalte egiten zaiola gizonak gauza guztietan duen ustezko hutsezintasunari. Juan Martin Elexpuru

-Tira, segituan argituko dute **amarru** hau guztia. Karlos Zabala

Instituzio demokratikoak izan ziren Erdi Aroan, baina ez puruak, bazeuden trikimailuak, **amarruak**, azpilanak, azpijokoak, satorrak. Markos Zapiain

Izu klase horren eraginez erori ziren aita eta bere lagunak zokor-mazo haien **amarruan** . Anjel Lertxundi

Ez gara politikariak, eta oraindik ez gara sartu **amarruen** joko horretan, eta oraingoz nahiko lasai eta zintzotasunez ari garela uste dut. Berria - Euskal Herria

Huraxe zen **amarruetako** bat: txakur ahulenaren azala gai loarazleaz espraiatu, beste zakurrak kosk egiten zion orduko lelotu eta bertan zerraldo eror zedin, nerbioak erabat anestesiatuta. Harkaitz Cano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Jendetasun hutsa, ala **amarru** maltzur bat hura ohera eramateko? Oskar Arana

Ez ukitu, baliteke hau guztia SDren **amarru** koldar bat besterik ez izatea. Alberto Ladron Arana

Ez huen sinistuko abstemioa naizelako **amarru** zikin hori. Josu Landa

Bitartekoak **amarru** latza izaten dira bertute arrunteko pertsonentzat. Karlos Zabala

Orain, baina, garbi ikusten dut dena juduek eta komunistek antolaturiko amarrua izan zela, gure herriaren nortasuna ahultzeko **amarru** beltza. Alberto Ladron Arana

Ba nik egingo nuke dena **amarru** publizitarioa dela, kapitalekoak hona etor daitezen prozesioan. Josu Landa

Karta-jokoan ez zen guztiz zintzoa eta garbia izaten, denetariko **amarruak** eta azpikeriak zekizkien. Jose Morales

Dena dela, harrokeriarik gabe erran dezaket gaurdaino gutik sartu didatela ziria gisako **amarruekin** . Aingeru Epaltza

Ez dut nire sexuari egozten zaion harrokeriarik; eta are gutxiago urguiluzko **amarrua** baizik ez den xalotasun aizunik. Jon Muñoz

Rachelek, Tomekin eta Honeyrekin azpilanean, deabruzko **amarru** bat prestatu zuen niri sinestarazteko beisbol partida bat ikustera joan beharra neukala Shea Stadium-era. Oskar Arana

Agora deabruak Totori aurre egiten dio, era guztietako **amarruak** erabiliz, baina ezpata magikoak egiten ditu harenak. Juan Kruz Igerabide

Segada bat izan zela, ongi prestatutako **amarrua** . Felipe Juaristi

3 (hitz elkartuetan)

Horretarako edozein bide izan da zilegi: elkartzeak, zatiketak, sektore ez-errentagarrien salmenta, finantza·**amarruak** . Iñaki Heras

4 ***amarruzko*** *izond/izlag*

Plazer duzu **amarruzko** arrazoibidez ni asaldatzen; itzurtzen zatzaizkie nireei. Jon Muñoz

Xehetasun handi barik kontatu zion ordura arte pentsatuta zeukana, **amarruzko** operazioa antolatzea otu zitzaiola, urte batzuk lehenagokoen antzekoren bat, itsasontzi bidezko kontrabandoa emango zuen zerbait, txakurrek gezurretako amukiari heldu ziezaioten. Josu Landa

Hori edo antzeko **amarruzko** beitaren bat bota omen zuen amak okinarenean. Anjel Lertxundi

Entimema, berriz, nolabait esateko, sasi-silogismoa da, silogismo tranpatia, **amarruzkoa** . Joxerra Garzia

Uste dut erabiltzen diren argudio batzuk **amarruzkoak** direla. Joxerra Garzia

5 ***amarru egin***

Neure buruari **egiten** nion **amarru** eta traizio, nire ofizioak besteei **amarru** eta traizio **egiteko** agintzen zidan bezala. Matías Múgica

· Eta epaileak **amarrua egin** nahi izan zidan, baina eginean harrapatu nuen. Berria - Kultura

Amarrua egin dizudala? Javi Cillero

Ez da faltako, horratio, gizakiek euren arteko harremanetan **amarrua egitea** ; hori horrela ere, askatasunari eta onusteari konfiantza aitortu behar zaie. Andres Urrutia

Bazirudien hitzarmen bat-edo egina zela Satanekin, gizakiei **amarruak egiten** dizkien Gaizkilearekin, gizakien bidean arrokak eta tranpak jartzen dituen harekin. Koro Navarro

Neure buruari **egiten** nion **amarru** eta traizio, nire ofizioak besteei **amarru** eta traizio **egiteko** agintzen zidan bezala. Matías Múgica

Baina hark uste zuen Ivan Ogareffen **amarru** bat **egin** nahi nuela eta lurrera bota ninduen eta eskuak eta oinak lotu zizkidan. Pello Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amarru bat (25); **amarru bat dela** (3); **amarru edo** (3); **amarru eta** (6); **amarru guztiak** (3); **amarru horrek** (4); **amarrua baizik** (5); **amarrua baizik ez** (5); **amarrua besterik** (7); **amarrua besterik ez** (7); **amarrua egin** (4); **amarrua izan** (4); **amarruak eta** (5); **amarruetako bat** (3); **amarruetan bezain ongi** (3); **amarruren bat** (4); **amarruz sartu** (3); **baina amarru** (3); **denetariko amarruak** (3); **eta amarru** (3); **eta amarrua** (3); **zuen amarru** (4)

amarrubide *iz* amarru egiteko bidea.

Amarrubidea , jakinekoa da: hil hurran diren metaforak, gezurretako aditz erabilerak (adizki soilak baztertu eta kate luze bihurtzen diren aditz lokuzio horiek guztiak), ahoskera harro-nahikoa, esanahirik gabeko hitzak [...]. Iñigo Aranbarri

amarruka *adlag* amarru eginez.

Gero eta tematsuago ari izan zitzaion Girolamo: **amarruka** , otoizka, engainuka, baita mehatxuka ere. Jon Muñoz

amarrukeria *iz* amarruzko egintza, gaitzesgarritzat markatua. ik **engainu**.

Hastapenetik egiazalea izan naiz zurekin, eta baztertu egin ditut gezurra eta **amarrukeria**. Patxi Zubizarreta

Heroi baten hainbatekoa da: amodioa eta mendekua dituzu zerbitzatuko; zure oroitliburuan ezarri beharreko bertze **amarrukeria** bat gehiago izanen da azken buruan. Jon Muñoz

Hori guztia zela eta, egun batez beren buruzagiari **amarrukeria** bat prestatu zioten. Patxi Zubizarreta

Emakumeen **amarrukeriak** eta azpikeriak aipatzen dituzten liburu asko irakurri dut, eta ez dut haienganako joerarik. Patxi Zubizarreta

Isil-isila egon zen, deabruaren **amarrukerien** kontra Jainkoaren laguntza eskatuz. Patxi Zubizarreta

Juduen ausardia nolakoa zen ikusirik, **amarrukeriaz** hartu nahi izan zituen erregeak gotorlekuak. Elizen arteko biblia

Judasek ipiniak zituen gudari armatuak toki egokietan, etsaiek ustekabean eta **amarrukeriaz** erasotzen bazuten ere. Elizen arteko biblia

Amarrukeriaz nahi izan nuena hantxe neukan, berez-berez etorrita. Xabier Mendiguren Elizegi

Hire mihi luzea **amarrukeriaz** dantzatu ostean, jai duk uste baldin baduk ene kafetegian jotzen utziko diadala. Patxi Zubizarreta

Nire mutil gaixo errugabe ustetsua beste edozein neskaren **amarrukerietatik** salbatzearren, urrutiago ere joateko prest nago. Antton Olano

Almendra itxurako begiekin tinko begiraturik, buruak **amarrukeria** egokia prestatzeko behar zuen denbora hartu zuen. Patxi Zubizarreta

Bertzeen gupida eta arreta -maitasuna hitz potzoloegia da- neureganatzeko **amarrukeria** merkea noski, gizakia bezain zaharra. Aingeru Epaltza

Emakumeak ere barre egin zuen eta madarikatu egin zituen Zaitaren deabruzko **amarrukeriak**. Patxi Zubizarreta

Kanpora tximistaren pare irten, eta zahagiak ikusmiratu dituelarik, ohartu da Ali Babaren kontrako **amarrukeriak** huts egin duela, eta bere gizon guztiak galduak dituela. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amarrukeria bat** (5); **amarrukeria izan** (4)

---

amarrutsu *izond* amarruz betea.

Horrela definituta -baina berehala ikusten da zer zaila den bere muga zehatzak finkatzea- ideien historiak kontuan du gizakien artean anonimoki mugitzen den pentsamendu **amarrutsu** osoa, errepresentazio-joko osoa. Xabier Arregi

Hemen Ortega-k subtilezia **amarrutsu** batekin jokatzen du: [...]. Joxe Azurmendi

Eman niri bihurri **amarrutsu** bat santujale ments baten ordez, nahi duzunean. Oskar Arana

Gordon mendekari **amarrutsu** bat izan zitekeelako susmoaz pentsatzea zen beraren heriotzaz pentsatzea. Oskar Arana

Zein **amarrutsu** jokatzen duten janari dituzten beste animaliei oldartzeko! Gotzon Garate

Baina egun osoan egin zion ihes diruak, maltzur eta **amarrutsu**. Anton Garikano

---

amarrutxo *iz adkor* amarru txikia.

Baina Biblian zentzu zehatz eta garbia daukan metaforak (han heriotza materiala da bizitza dakarrena, eta bizitza izpirituala da heriotzak dakarrena), hemen zentzurik ez dauka batere, **amarrutxo** literario txar batena baino estutasunetik eskapatzeko. Joxe Azurmendi

---

amarruzale *izond* amarruen zalea.

Ilegorria, oreztaduna, hankokerra, krakaz eta zorriz betea, gezurtia eta **amarruzalea**. Itziar Otegi

Laertesen seme **amarruzale** hori: ez egin negar gehiago. Juan Kruz Igerabide

Laertesen seme, Ulises **amarruzalea**, hoa lehenbailehen heure ontzira, atera ezak arrastaka lehorrera, armak eta hornidurak leize batean ezkutatu, eta itzul hadi hona heure lagunekin. Juan Kruz Igerabide

Amarruzale hori, oraintxe erakutsiko diat nor den hemen azkarrena! -ziotson Selifanek nagitzarrari, jarlekutik altxatuxe eta zigorrarekin joz-. Jose Morales

---

amasar *izond* Amasako biztanlea.

Manuel Arbiza **amasarra** mendialdi bat egitera jalgi zen Txiki zakurrarekin. Gotzon Garate

---

amaso *iz* amona.

Salmoan baitator ("Isur ezak Heure haserrea Jainkotzat aitortzen ez hauten jendeen gainera, eta Hire Izena hots egiten ez duten erreinuen gainera"), gure **amaso** zaharrek "fé sefòkh" esapide etxe-etxekoa atera zuten (hots, "sefòkh" egitea), haurraren goitikoa deskribatzeko. Juan Garzia

---

amataezin *iz* ezin amatatuzkoa.

Jean Baptistek Virgilia biola-jotzaileari begiratu eta begiarekin batera samurtasuna eman zion, eta Virgiliak biola-joaldi batez sua itzuli zion maitaleari, barne muinak erre zizkion su gori, su gorri, su **amataezina**. Felipe Juaristi

Soldadu aleman batzuk ikusi ziren, soldadu aleman batzuk, gehiago ezin, eta armarik gabe gure lerroetara arin baino arinago etorri nahian, barnean su **amataezina** balute bezala. Felipe Juaristi

Amataezina dena. Xabier Montoia

---

amatar *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi) izond* amaren itxura edo joerakoa.

Baina bi egun haietan ni, zur eta lur benetan ahozabalitu ninduena, Arantzazuz Gandiagak ikus-asmatzen zuena, orografikoki altzo bat osatzen duen paraje **amatarrarena**, Arantzazuri bezalaxe Delfiri osoki egokitzen zaiola ikustea izan zen. ETC-literatura, saiakera

Teresaren ezpainak maitasunezko musuaren orduan, zabalduak eta osoki emanak, eta ezpainak adiskidetasunezko musuaren orduan, apur bat ironikoak, apur bat **amatarrak**. ETC-literatura, saiakera

Orain gutxi, Tsipras, Renzi eta Merkel agertzen zireneko bat zabaldu dute: Italiako presidenteak lepotik hartzen dio Greziakoari (sozialdemokraziak, moderazioak, ezkerrekoa-baina-arrazoiz- kotasunak menpe hartuta), Alemaniakoaren begirada **amatarraren** aurrean. ETC-prentsa

Atzerritarrek sexu-harremanak arazorik gabe praktikatzen omen zituzten bitartean, espainola **amatarra** eta birjina izango zen narrazio horietan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amatasun 1 *iz* ama izatearen nolakotasuna; ama bere seme-alabekin elkartzen duen lotura.

Amatasunak bere horretan etengabeko zoriona ziurtatzen duela sinistarazten digute. Arantxa Iturbe

Amatasuna eta aitatasuna elkarrekin bizitzeko erabakia hartu arren, **amatasuna** amok bakarrik bizi dugulako ari naiz **amatasunaz**. Arantxa Iturbe

2 *amatasun baimen*

Haurrak ezintasunen bat balu, **amatasun baimena** bi aste luzatuko litzateke. Berria - Euskal Herria

Gaur egun geroz eta guraso gehiagok uzten dute euren seme-alaba haur eskolan edo haurtzaindegian **amatasun baimena** amaitzean. Berria - Euskal Herria

3 *amatasun baja*

Amatasun baja : **Amatasun baja** 19 astekoa izango dute, eta 100%ean ordainduta egon beharko du. Berria - Euskal Herria

Amatasun baja eta lan osasun eta arriskuen prebentziorako ere akordio batera iritsi dira. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **amatasun baja** (3); **amatasun eskubidea** (3); **amatasun eta** (5); **amatasun eta aitatasun** (3); **amatasuna emakumearen** (3); **amatasuna eta** (4); **amatasuna ez** (5); **amatasuna ulertzeko** (3); **eta amatasun** (3); **eta amatasuna** (6)

---

amatatu, amata(tu), amatatzen *(orobat **amatau** g.er.)* **1** du *ad* itzali, iraungi.

Argia **amatatu** eta ezin dut lorik egin, ukitu ere egin daitekeelako umeltasuna eta gazitasuna izaretan. Joseba Sarrionandia

Su itzalgailua hartu, eta berak **amatatu** zuen sute txikia. Berria - Euskal Herria

Ukrainako presidenteak, Viktor Justxenkok, zentral nuklearreko sutea **amatatzen** lanean aritu ziren milaka pertsona gogoratu zituen. Berria - Gaiak

Sokorriko bengalak **amatatu** eginen dira uretara baino lehen, eta edertasun mingots horretaz hobeki gozatzeko begiak bildu ez izanagatik iluntasunik trinkoenean geldituko zara, liluramenduzko hutsean. Koldo Izagirre

Alkateak zigarroa **amatatu** zuen harrizko zuraren kontra, eta bere larruzko bota luzeez zapaldu. Felipe Juaristi

Beste zigarro bat isiotu, zupada pare bat eman eta buztinezko hautsontzian **amatatu** du. Sonia Gonzalez

Pipa **amatatu** zaio ostera. Koldo Izagirre

Argizaria isioturik izatea susmagarria izan zitekeela pentsatuz, **amatatu** egin nuen eta, horra ni ilunetan. Edorta Jimenez

Kandelaren garra **amatatu** zuen. Juan Garzia

Leihoetatik sualdiak irteten ziren, eta **amatatzen** zela ematen zuenean sulama gorriak irteten ziren berriro bufadaka. Joseba Sarrionandia

Mendietan sugarrak **amataturik** zeuden, eta txingarrak errautsen azpian ketan. Agustin Otsoa

Eguzkia basamortuaren gainera altxatzen ari da pantaila argitu eta sala **amatatu** denean. Joseba Sarrionandia

Frijitzeko erabilitako su elektrikoa **amataturik**, horren gainean utzi zuen kazuela. Jon Alonso

Irratia **amatatu** zuen instintiboki. Josu Landa

Telebista **amatatu** eta ohera itzuliko da. Joseba Sarrionandia

Ordenagailua **amatatu** zuen gero. Unai Elorriaga

Lanetik landa, etxerat buruz abiatzen da kronikaria eta etxean eman bezain fite egiten duen lehenbiziko gauza telebista itzaltzea da; **amatatzea**, bai. Jose Angel Irigaray

Carmenek motorra **amatatu** du, eta, paperak hartuta, kabinatik jaitsi da; barruan geratu da autostopista. Iban Zaldua

Padre Alvarezek argiak piztu eta filma **amatatuz** gero, zutitu eta alde egin beste erremediorik ez zegoen. Joseba Sarrionandia

Eta **amatatuko** ez den iluntzean zerutik argi gortina harrigarriak zintzilikatuko dira. Joseba Sarrionandia

Guadalajarako sua **amatatu** zenean -1937ko martxoaren 20a aldera- gerra espainolaren nondik norakoa gune kritiko batera iritsia zela esan liteke. Edorta Jimenez

Gero, gorridura hura ematzen hasi zen, **amatatzen**, eta ordainetan albo ertzak zuritu zitzaizkien hodei molkoei. Iñaki Iñurrieta

Udan zehar iritsitako gutunei arretaz erreparatuz gero, apurka-apurka suaren apaltze moduko bat sumatzen zela esango nuke; ez **amatatzea**, ez iraungitzea, baina bai mantsotzea, hizketagaietan amodioaren zoroak arimaren bestelako zokoei tokia egin balie bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Polizia gehienek zuten ohitura zen zigarroak ateen markoen eta hormen aurka **amatatzearena**. Harkaitz Cano

Goizaldean piztu zen sua bulegoan eta suhiltzaileek berehala **amatatzea** lortu zuten. Berria - Mundua

2 (era burutua izenondo gisa)

Gortinak zabalduta neoizko idazpuru **amatatua** seinalatu zion. Tximino ilea dauka, beltz **amatatua**, lakarra, ezin hezia. Josu Landa

Eskuak poltsikoan, erre i pearen azpian bere izen propioa berrirakurri zuen harrituta, eta data **amatatu** haietatik hilaren adina kalkulatu zuen. Joseba Sarrionandia

Linterna estalien zohardura **amatatua**. Agustin Otsoa

3 irud/hed

Ideia ilun hark guztiz **amatatu** zidan jateko eta hizketarako gogo urria. Alberto Ladron Arana

Zeruaren urdina **amatatzen** denean pizten ditugu gure bakardadearen argiak. Pako Aristi

Tradizioa ez zen han hemenka berandura arte **amatatu**, ez eta Euskal Herrian ere, Esteban Garibaikoaren testigantza haintzat hartzekoa bada. Patziku Perurena

Hor zegoen uneoro zure irrika, zure desira isil baina ozena, aurrerabiderik ematen ez nizunez ibitua baina ez **amatatua**. Xabier Mendiguren Elizegi

Beste alarau batek airea astindu zuen, eta **amatatu** egin zen gero. Agustin Otsoa

Alabaina, denboraldi sutsu ugari ezagututakoa naiz, eder askoak gainera, istant batez argi guztia eurentzat hartzen duten horietako harremanetan ibilitakoa naiz maiz, baina bikote guztien artean egoten den lehenengo zaparradaren ostean, **amatatu** egiten zitzaizkidan niri desio guztiak. Hasier Etxeberria

Itsasontzi osoan zehar zabaldu zen oihuaren oihartzuna, eta **amatatuz** joan zen gero. Julen Gabiria

Iristen ari gara Arco da Conceiçaora, Preguiça iturria eraiki zen tokira, ur ezin gozoagoak, jende askoren egarria eta lan egiteko gosea **amatatu** zituztenak, gaur artean. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **amatatu du** (6); **amatatu egin** (10); **amatatu egin zen** (3); **amatatu egiten** (3); **amatatu eta** (14); **amatatu gabe** (3); **amatatu zuen** (16); **amatatu zuten** (3); **amatatuko ditu** (3); **amatatzen ari** (3); **amatatzen ez** (4); **amatatzen ez den** (4); **amatatzen zen** (4); **argia amatatu** (8); **argia amatatzen** (5); **argiak amatatu** (7); **argiak amataturik** (4); **irratia amatatu** (4); **sua amatatu** (3); **sua amatatzeko** (6); **telebista amatatu** (3); **telebista amatatu eta** (3); **zigarroa amatatu** (3); **zigarroa amatatu zuen** (3)

---

amatatzaile *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* amatatzen duena.

Inguru honetako nekazari horrek gu ehizatu ostean eguzkiaren argitan ikusiko bagintu, apaldu beharko luke otso-taldeko azken ale deslaien ehiztaria izatearen harrotasuna, bi zakur hazteritsuen **amatatzaile** besterik ez zela ohartzean. ETC-literatura, saiakera

ANTS molekula fluoreszentea eta bere **amatatzailea** den DPX-a konposizio desberdinetako LUV-ak erabiliz kapsulatu genituen. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amatatze *iz* itzaltzea, iraungitzea.

Tranbia bateko laguntzaileak lortu zuen sugarrak **amatatzea**, baina erredurak sendaezinak ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta, Mirenen irudia **amatatzeaz** batera, Miren erreala ere hilko zaio eta hilko du Leturiak, azken orduko damuak eta konbertsioak gorabehera. Berria - Kultura

Hitz jarioan zerraien bezperan **amatatzea** ahaztutako irratiak. Unai Iturriaga

Udan zehar iritsitako gutunei arretaz erreparatuz gero, apurka-apurka suaren apaltze moduko bat sumatzen zela esango nuke; ez **amatatzea**, ez iraungitzea, baina bai

mantsotzea, hizketagaietan amodioaren zoroak arimaren bestelako zokoei tokia egin balie bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Lanetik landa, etxerat buruz abiatzen da kronikaria eta etxean eman bezain fite egiten duen lehenbiziko gauza telebista itzaltzea da; **amatatzea**, bai. Jose Angel Irigaray

Ez zaigu helikopteroaren motorra **amatatzea** komeni. Joseba Sarrionandia

---

amatatzear *adlag* amatatzeko, itzaltzeko zorian.

Sutondoa ere miserablea zen, eta sua beti **amatatzear** zegoen. Agustin Otsoa

---

amatau ik **amatatu**.

---

amategi *iz batez ere ipar* erditu berri diren emakumeentzako erietxea.

Haien artean zegoen nire amak jaio nintzenean **amategian** egin zuen egonaldiaren faktura! Joxan Elosegi

1995ean Iruñeko Ospitaleko **amategia** eta umezurztegia desagertu zenean, han zeuden umezurtzen ama biologikoen datuak gordetzen zituzten espedienteak eta agiriak atera zituzten. Berria - Euskal Herria

Ospitaleko **amategi** berrituaren estrenaldia. Herria

Oroit gara hetsiak direla Miarritzeko poliklinikako **amategia** eta Donibane Lohizuneko **amategi** publikoa. Herria

---

amateur 1 *izond/iz* profesionala ez dena; profesionala ez den pertsona.

Aktore **amateurraren** xalotasuna. Iñaki Iñurrieta

Gure amona Pina ile-horia eta panpoxa zen gaztetan, eta behin antzerki-talde **amateur** batean aritu zen. Fernando Rey

Horrelaxe jakin genuen Elena bera Zirku **Amateurrean** ibilia zela, Sinbad bezala. Edorta Jimenez

Bistan da argazkilari **amateur** batek egindako argazkia apailu horietako bati dagokiola, eta zinema, berriz, besteari inondik ere. Josu Zabaleta

Hura ez zen ordea emigrante **amateur**, gustuz bidaiatzen zuen horietako bat, Afrikara soldaduskara ez joateagatik hartu baitzuen Ameriketarako bidea. Harkaitz Cano

Badira **amateurren** filmak, etxe barruan, pantaila txikitxo batean, proiektatzen direnak. Josu Zabaleta

Katean egiten diren argazkilari **amateurren** argazkiek, ez markorik, ez bazter zurigunerik ez dute izaten. Josu Zabaleta

Aitona ez zen benetako politikaria inoiz izan, ez dut uste, oso garai **amateurrak** ziren haiek. Mikel Hernandez Abaitua

Filmatzen ahal zituzkeen planoekin egiten du amets **amateurrak**. Koldo Izagirre

· Ez da **amateurrentzako** lana. Xabier Olarra

Nahiz eta ni ez izan **amateur** bat besterik, tragedia, sonetoa edo odaren arauak trabagarri zaizkiona, izan ere, ez daukat idazteko ohitura. Xabier Olarra

Erruki zaitezte **amateur** gizajo batez. Koro Navarro

Animalia-munduko espezialisten aldean, **amateur** hutsak baitira ia gizakumeak. Juan Garzia

Mendebaldean lehenengo pentsatu zuena ez zen arkitekto profesional bat izan, **amateur** irudimentsu bat baizik. Iñaki Mendiguren

Puntutan irabazi zuen Joseluk **amateurren** arteko final hura. Josu Landa

2 (hitz elkartuetan)

Gaztetan eta **amateur** mailan ez nuen lasterketa bat bera ere irabazi, baina emaztea ezagutu nuen. Unai Elorriaga

'Amateur' gisa segi zituen bere balentriak. Ramuntxo Etxeberri

Huraxe izan zen, diotenez, mendi bat **amateur** modura igoa izan zen estreinako aldia. Bernardo Atxaga

Historia ere egiten da eta hasierako **amateur** garaiak gaitzetsi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Poeta **amateur**-diletantetzat dut, beraz, neure burua. Joxerra Garzia

3 ***antzerki amateur***

antzerki amateurrak aurreko urteetan baino leku handiagoa izango du aurten Azpeitian, eta Pako Aristik mugimendu horren inguruko kazetaritza liburua egin du, 'bokadillo baten truke'. Berria - Kultura

Pertsona biren arteko maitasun desioari buruzko lanarekin sartu dira **antzerki amateurraren** zirkuito bilbotarrean, eta saio bana egingo dute, Errekalden eta Santutxun. Berria - Kultura

Guztira, 1.565 izan ziren profesionalenak eta 1.070, berriz, **antzerki amateurreko** saioak. Berria - Kultura

4 ***irrati amateur***

Kaskoan antena bat du, **irrati-amateurrekin** harremanetan jartzeko. Berria - Gaiak

Lurreko **irrati-amateurrak** eta ikasleak entretenitu eta, bidez batez, apur bat ilustratzea omen da asmoa. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**
> **amateur bat** (3); **amateur mailan** (5); **amateurra dela** (3); **amateurra zen** (4); **amateurrak dira** (3); **antzerki amateurrak** (3); **antzerki amateurraren** (7); **antzerki amateurrari** (3); **argazkilari amateurren** (3); **talde amateur** (5); **talde amateurra** (3); **talde amateurrak** (3)

---

amateurismo *(ETCn **97** agerraldi, horietatik **50** azken sei urteetan) iz* amateurra izateko zertzelada.

Amateurismoa, ordea, Poliziaren aurka erabil dezakete bretoiek; hori, edo okerragoa dena, Justizia erabiltzea Emgann mugimendu independentista eta oro har bretoi izaerako elkarte kultural zein politikoak kriminalizatzeko. Berria - Mundua

---

amatiar 1 *izond* ama izatasunari dagokiona.

Emaztea emakume zintzoa zen, gizonek gogoko dituzten dohainez betea: emetasun handikoa, **amatiarra**, fidela, etxeko andere bikaina eta, oso gaztea izan arren, seme-alabak garaiz eta ugari eman zituena. Patxi Zubizarreta

Adimenak ez dit argitzen nolatan gerta zekiokeen halakorik Adelari, gure auzora gaxte-gaxterik iritsi eta nire bizitza aldatu zuen maistra **amatiarrari**. Juan Kruz Igerabide

Haren begirada **amatiarraren** pean. Alberto Ladron Arana

Baina bazegoen Adelaren baitan beste alde bat, bakerik ematen ez ziona, nahiz eta haurrekin zegoelarik eztitasun **amatiar** edo jolaserako jaidura bihurtzen zuen. Juan Kruz Igerabide

Ezin irudika zezakeen inongo arriskurik sentipen **amatiar** hartan. Xabier Montoia

2 (adizlagun gisa)

Garbitu egin du, ezti, bihozbera, **amatiar**. Itziar Otegi

amatista *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **ametista** agertzen da) iz* kuartzo kristaldu mota, gardena eta kolore morekoa, bitxigintzan erabilzen dena. ik **ametista**.

Hirugarrenean, opaloa, agata eta **amatista**.

Lepoaren inguruan **amatistazko** kate bat zeraman, eta hortik dilindan betaurrekoak. Lopez de Arana

---

amatistadun *izlag* amatista duena.

Ez zituen berekin ekarri, halere, ez lapis lazulizko paparreko orratza, ez olibinozko besokoa, ez eta topazio eta **amatistadun** eraztunak ere; etxean utzi zituen bere komodako tiradera batean. Mirentxu Larrañaga

---

amatto ik **amatxo**.

---

amatu, ama(tu), amatzen da/du *ad* ama bihurtu.

Ximurrarekin ezkondu, etxekoandretu eta **amatu** zenez geroztik biribiltzera emandako gorputz eta begitarte horietan deus guti gelditzen zen hogei urte bete gabean ezagutu nuen neska mehakil eta bisai-hezurtsutik. Aingeru Epaltza

Amatxi adinean **amatu**, hau balentria! Herria

Hilabete baten buruko edo berdin lehenago **amatu** beharra zen. Daniel Landart

Ortzi delako behia, hor **amatu** zen, uda betean, eta huna horren segida, bai-bai, badu odola, bainan halere goxoa, beharrik. Herria

Hamalau aldiz **amatu** zuen bere andrea, eta ez zuen oraino galdu ugaltzeko ahala. Aingeru Epaltza

Jainkoari eta emaginari eskerrak, ene lehen heriotza egiteko zenbait urtez egon beharko nuen oraino, eta amak ere parada izanen zuen berriz ere **amatzeko**. Aingeru Epaltza

Kutxak jendeari itzuli dion dirua emendatu da % eko 8,7 an urtea barne; postu guziak emendatu dira: eritasun, lan ixtripu (% eko 14, 7) **amatzeko** gastu (% eko 6,) eta guziz heriotze (% eko 16,7). Herria

Amatu berriarentzat munduko ederrena, zentzu berria zekarkiona. Jose Angel Irigaray

---

amatur **1** *iz ipar* amateurra.

Lehenik erranen dugu **amatur** bezala, eta gero ofizioko gisa. Menane Oxandabaratz

Bi pareetan ere izanen ditugu hor **amatur** bat eta berezko bat elgarrekin uztartuak. Herria

Trinketeko xapelgoak ere nola doatzin, gero, **amatur** horietan. Herria

Amatur gazteak ezkerparetako xapelgoan. Herria

Baiona ttipian suerte desbardinak zituzten ortzegunean bi **amatur** gazteek beren lagun berezkoekin uztarturik. Herria

Aratsaldean lauetan esku huska herriko pilotarien lehiaketaren finalak, ondotik **amatur** onekin partida. Herria

Herritar batek parte hartzen du **amatur** hoberenekin, hau dugu Sohondoko Bixente Oihenart. Herria

2 *izond*

Gure xedea da presuna helduak biltzea eskuketan aritzeko, tropa **amatur** bati buruz abiatzen hasteko elkarrekin. Herria

---

amatxi **1** *iz* amona.

Herriko baratzean, gostuan ibilki, **amatxi**, ama, ttantta, kusi eta auzoko emazteak, haurrekin. Piarres Aintziart

Graxik bere aitamak, anaiak eta **amatxi** azkarki besarkatu zituen. Eneko Bidegain

-"Koño!" -piztu zen **Amatxi** klaxon kolpe bat emanez aitzineko beribilari-. Ramuntxo Etxeberri

Amatxi beti izan zen bere alabatxoaren abokatu hoberena. Ramuntxo Etxeberri

Horiek denak Mattinek berak erranak joan den egunean bere bataioko **amatxi** duen izebari! Janbattitt Dirassar

Neska ederra izan zen **Amatxi** Maddalen. Ramuntxo Etxeberri

Amatxi Marie gure etxean, Hendaian, bizi izan zen 10 urtez, 90 urterekin han hil arte. Ana Urkiza

Uste dut andre hura nire **amatxi** zela baina ez naiz segur, ez baitu hitz erdirik ere erran. Elena Touyarou

Haurrek **amatxi** deitzen ditek, gure aitaren arreba bakarra izan arren. Aingeru Epaltza

Lehenik Baionan hil zen osaba zaharra, 80 urteko apeza gero Kanbon, osaba arotza hil zen zazpi haur utzirik, **amatxi** ere galdu nuen. Menane Oxandabaratz

Amatxi bera dago bakarrik. Eneko Bidegain

Amatxi zaharraren leihoak zein ote ziren asmatzera saiatuz. Ramuntxo Etxeberri

"Begira, begira zer **"amatxi"** itsusia bihurtu naizen!", esaten zuen ispilu aurrean kapelua jantzi bidenabar. Fernando Rey

Txinatar **amatxi** horrek Ninaren interesa piztu zuen. Ramuntxo Etxeberri

- **Amatxi**, otoi, jaits zaitez zuhaitz hortarik! Itxaro Borda

2 ***amatxi lore*** zurtoin meheko landarea, paretari atxikitzen dena.

Hernaniko karrika nagusia, dena erliebezko armarriek, bitxi-balkoiek, atari jaungoenekoek apaindua, egun almenen ordez **amatxi**-loreak dauzkan borta hondatu batek itxia, liburu bikaina dugu non irakurri, orrialdez orrialde, etxez etxe, lau mendetako arkitektura. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aitatxi amatxi** (9); **aitatxi eta amatxi** (8); **ama eta amatxi** (5); **amatxi baliosa** (4); **amatxi batek** (5); **amatxi beti** (4); **amatxi edo** (3); **amatxi ere** (4); **amatxi ez** (4); **amatxi maitea** (4); **amatxi maiteak** (3); **amatxi marie** (4); **amatxi xaharrak** (3); **bere amatxi** (5); **beren amatxi** (3); **gure amatxi** (4); **zen amatxi** (12); **zuen amatxi** (4)
>
> **aitatxi amatxiak ahantzi** (3); **aitatxi eta amatxiak** (3); **amatxiak ahantzi gabe** (4)
>
> **aitatxi amatxiek** (9)
>
> **aitatxi amatxien** (6)
>
> **aldetako aitatxi amatxieri** (4)
>
> **amatxik ez du** (4); **amatxik utzi** (3); **graxik eta amatxik** (4); **zion amatxik** (4); **zuen amatxik** (6)
>
> **aitatxi eta amatxiren** (5); **amatxiren euskara** (3)
>
> **bere amatxiri** (4)

---

amatxitu, amatxi(tu), amatxitzen da *ad* amatxi bihurtu.

Orain, **amatxitua**, haurrak eta haien seme-alabak hartzen ditu plazer handirekin, bainan ez du sekulan ahanzten nondik pasatu den. Herria

---

amatxo *iz (orobat **amatxu** g.er. eta **amatto** g.er.) adkor* haurrek **-**edo haurrekin hitz egitean nagusiek**-** amari ematen dioten izena.

Amatxo bizkarrera itzuli zen, belo arin arrea haizeak astintzen ziola. Lopez de Arana

-Triste jarri al zinen **amatxo** utzi beharraz? Oskar Arana

Gero arte, **amatxo**, eta mila esker. Itziar Otegi

Hau da jendetza, **amatxo**! Lopez de Arana

- **Amatxo**, nik mutila izan nahi dut. Lopez de Arana

-Baina, **amatxo**, neu ere izutu egiten naiz. Itziar Otegi

Badakizu, hasi zitzaizkidan, aitatxo eta **amatxo** ez garela oso ondo konpondu azken boladan. Xabier Montoia

-Jatorra oso, zure **amatxo**! -esan nion nik. Joxe Austin Arrieta

Andresen aita eta Jorgeren **amatxo** elkarrekin hasi ziren bizitzen. Joxemari Iturralde

Non dago **amatxo**? Iñaki Mendiguren

Beraz, esazu, **amatxo** Wendy: / zer da orain nahi duzuna? Julen Gabiria

Behin batez, platerkada bat arroz-esne jaten ari nintzela, ondoan eseri eta **amatxo** gora eta **amatxo** behera hasi zitzaidan, eta ezertaz konturatzeko beta hartu baino lehen leihoa ilunduta zegoela ikusi nuen. Bernardo Atxaga

-Bazkaria prest dago, **amatxo** maitea. Lopez de Arana

Hirugarren egunean azaldu zen, azkenik, lehen helikopteroa, gutxienez **amatxo** argentinarra eta bere bi umetxoak erreskatatzeko. Joxe Austin Arrieta

-Benetako **amatxo** zara. Juan Kruz Igerabide

Juan Luis bere betiko builekin, Eli beti bezain **amatxo**, Olatz beti bezain jatorra. Xabier Mendiguren Elizegi

Amatxok beti esaten du ezetz hasieran. Itziar Otegi

Maitea, **amatxok** gauza batzuk egin behar ditu gaur arratsaldean, baina itzuliko da gero. Koro Navarro

Itxaron pixka bat, **amatxok** amaitu du. Itziar Otegi

Eta katixima-irakasle herrian, eta akolito, eta Begoñako **Amatxoren** gurtzaile. Inazio Mujika Iraola

Amatxoren galderak txit zorrotzak izaten dira batzuetan. Antton Olano

Zuk, Eszter, **amatxorena** egiten jarraitzen duzu. Ander Irizar

Agur bero bat Assistik (nire aipamenik ez), eta mila musu **amatxorentzat**, besarkadarik goxoenarekin batera. Joxe Austin Arrieta

Barnetxeko xokoan **amatto** zure beha dago! Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amatxo baten (3); **amatxo eta** (4); **amatxo laztana** (3); **amatxo maitea** (7); **amatxok ere** (3); **amatxok esan** (4); **amatxok esan zidan** (3); **amatxok ez** (3); **eta amatxo** (9); **nire amatxo** (3); **zure amatxok** (3)

---

amatxokume *iz adkor* umemokoa, umekondoa.

Bakan joan ohi ginen elkarrekin hiriburura, **amatxokumeen** gauza iruditzen zitzaien lagunei, jantzi turista izozki hondartza, dendaleihoak ikusten ibiltzearekin identifikatzen zuten hango espaloiak zapaltzea. Koldo Izagirre

---

amatxu ik **amatxo**.

---

amatzako *iz* amatzat hartzen den andrea.

Bazekien, behinik behin, gizon zintzo hura bere **amatzakoaren** semea zela. Karlos Zabala

Guztiarekin, izugarri maite zuen, Hamidaren **amatzakoa** besterik ez bazen ere. Patxi Zubizarreta

Guztiarekin, izugarri maite zuen, Hamidaren **amatzakoa** besterik ez bazen ere. Patxi Zubizarreta

Kafe etxeko nagusi Kirxaren emazteak, Hamidaren **amatzakoak**, ama izatea opa zion, gau eta egun joka erabiliko zuen senar bihozgabe baten mendean haurrei bularra eman behar izatea. Patxi Zubizarreta

Bazekien, behinik behin, gizon zintzo hura bere **amatzakoaren** semea zela, eta eskerrak ematen zizkion Jainkoari andre gatibu haren ondoan seme galdua ordezkatzeko poza eman ziolako. Karlos Zabala

---

amatze *iz* ama bihurtzea.

Hala nola, badira manera naturalez galdatzen dutenak **amatze** hori Bilbon eta ez osoki medikalizatu moldez. Herria

---

amaurosi *iz* argiaren pertzepzioaren erabateko galera, iragankorra edo behin-betikoa izan daitekeena.

Utzazu hori orain, goazen harresira fedegabeen anabasa ikustera, alabaina, hitz hauek gaiztoz esan ez direnez, azalpen bakarra almuedanoaren itsutasuna **amaurosia** izatean datza, hau da, begiratzen ari zaigu, alegia, begiak gu gauden tokirantz iltzaturik dauzka eta ezin gaitzake ikus, hau tristura. Jon Alonso

---

amautxi *iz* amabitxia.

Bere mintzo taigabeari tartekatzen zitzaizkion berarekin zegoen neska gaztearen iritzi ozenak: "ez, ama, eskote handiegia", "faborez, zera baino lodiago egiten zaitu-eta", "tira, tira, honekin **amautxi** beharrean, senar-berriaren izeba monja emanen duzu". Aingeru Epaltza

---

amazig *(corpusean **amazigh** soilik) izond* Afrikako iparraldeko zenbait herrialdetan bizi den etnia batekoa, etnia horri dagokiona, etnia horretako kidea. ik **berbere**.

Marokon, esaterako, **amazigh** kulturako indigenek arabiar izenak jarri behar izaten dizkiete euren seme-alabei, ez baitiete **amazigh** izenak erabiltzen uzten Berria - Gaiak

---

amazigera *(corpusean ez dago; ETCn **291** agerraldi) iz* Afrikako iparraldeko zenbait herrialdetan mintzatzen diren hizkuntzen multzoa.

Amazigera edo berberera, berbereek mintzatzen dituzten afroasiar hizkuntza kamitikoei ematen zaien izena da. ETC-entziklopedia

Urriaren 22a - Pedro Hilarion Sarrionandia, bizkaitar abade frantziskotarra, **amazigera** hizkuntzaren lehen gramatika idatzi zuen (h. 1914). ETC-entziklopedia

Gu geure artean **amazigeraz** bezala, ez darijaz. ETC-literatura, saiakera

"Galduz, irabaziz baino gehiago ikasten da", esaten da **amazigeraz** bai Marokon eta bai Aljerian. ETC-literatura, saiakera

Tamazight dira **amazigeraz** hitz egiten dutenak, baina europarrentzat berbereak, arabierazkoentzat Xelha, espainolen izendapenez Rifeño. ETC-literatura, saiakera

Eta badirudi gaia Maroko dela (edo Arrif, edo Magreb) edo, bestela esanda, bertako biztanleak, bereziki amazigak, eta bereziki beren hizkuntza, **amazigera**. ETC-literatura, saiakera

Berbere edo **amazigera** hizkuntzan mintzo den herriak ere buru-bihotzetan sakon iltzatua dauka gutxiagotasun sentieraren arantza. ETC-literatura, saiakera

Bera bezalako asko ziren kontrol postuetako txandak eta **amazigerazko** eskolak kateatzen zituzten aktibistak Zuwaran. ETC-literatura, saiakera

Ez arabiera arrunta ez **amazigera**, ez dira ofizialak eta ez dira idazten. ETC-prentsa

Testuko hizkuntzei buruz galdetu nion, itxuraz euskara, gaztelania, portugesa eta **amazigera** izan zitekeen zerbait nahastuta zeudela eta. ETC-prentsa

"Egun on" batekin agurtu du kazetaria, euskaraz, eta **amazigeraz** galdetu dio ea zer moduz dagoen: "Salam mat anit?". ETC-prentsa

Garaiko testuek ez diete inolako izaerarik onartzen Espainiako bestelako mintzairei: aragoiera, asturiera, okzitaniera, portugesa, arabiera, **amazigera**, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amazigh ik **amazig**.

---

amazko *(corpusean ez dago; ETCn **50** agerraldi) izlag* amari dagokiona.

Hain du adimen zorrotza, ingeniari ere izan zitekeen, baina, aldi berean, halako besarkada **amazko** batekin hartzen ditu entzundakoak. ETC-literatura, saiakera

Esan gabe doan gauzatzat hartzen dira emakume baten zeregin **amazkoak**, eta, era berean, familiak berak gutxitan hartzen ditu aintzat emakumeak egindako etxekoandre-lan amaiezinak. ETC-literatura, saiakera

1860ko urteetan patriarkatuaren inguruan piztu zen eztabaidan, gai nagusia zen ea zein zen benetan forma sozial jatorrizkoa: aitazko eskubidea edo **amazko** eskubidea. ETC-literatura, saiakera

Gizonak zerua nahi du, argia, gailur eguzkitsuak, urdinaren hotz aratz gardena; eta oin azpian amildegi heze, epel, ilun bat du, bera irensteko prest; kondaira askok erakusten digute nola galtzen den heroia betiko, **amazko** ilunpeetan erorita: leize, amildegi, infernu. ETC-literatura, saiakera

Berak arriskuan ikusi zuen bere argazkia, "auskalo zenbat balio zuen" perla-**amazko** marko batean zegoena, ulertu zuen gauzak konplikatu egingo zirela iritziz aldarazten saiatuz gero, eta, begietara malkoak ekarriz, onartzeko itxurak egin zituen. ETC-literatura, saiakera

Mary itxuraz bare, **amazko** bati egin zion Dickek ez-kontza-eskaera, eta arrunt gizon enamoratu, umil eta esker oneko agertu zen hark eskaera onartu zuenean. ETC-literatura, saiakera

Baina, horrelako jarreran harrapatu izanak batere kezkarik emango ez balio bezala, poz-pozik hartu zuen umea besoetan eta, **amazko** oldarraldi batean, musuz josten hasi zen. ETC-literatura, saiakera

Azkenean, Inkisizio demokratikoak ere maitatua izan gura du, eta Botere irmoa bai, baina **amazko** leuna izango da, ez tiranikoa. ETC-literatura, saiakera

eta orduan ere -harena baino betarte errukigarriagorik...! -, ez zuen kale egin, saltzaileak, **amazko** irribarre bat artezturik, amore eman baitzuen. ETC-literatura, saiakera

amazkoa eta abegitsua zarela. ETC-prentsa

---

amazona *iz* zaldi gainean ibiltzen den emakumea.

Lehenbiziko borrokalariak iletik heldu zion beste **amazonari**, larrutu nahi zuen. Fernando Rey

Batean erraiten nion ezen Indietako oihanetan zentauro bat ikusi nuela, eta bertzean, **amazona** bat, eta, noiz eta don Luziok galdegin baitzidan egia zenetz **amazonek** bular bakarra zutela, nik, ezin seriosago, ihardetsi nion: [...]. Joan Mari Irigoien

Amazonen erreginak biziki kasu egiten baitu nehor ez dadin ateka horretarik haren erreinuan sar, haren erreinuaren alderdi bat mendi handi horietarik hurbil baita. Aurelia Arkotxa

Amazona urdin bat duk, hiztunik onenetariko bat. Jon Muñoz

Handik andre-irudi pare bat azaleratu zen, eta kaka lohia zela bistaratu zen, eta andre-irudiak **amazona** borrokalariak. Fernando Rey

Schumacher ere nire aldera erakarri nuen, sarjentua ere bigarrenaren alde orduan; hau hain tripaundia ez, kementsuagoa bai ordea: **amazona** larrutzailea! Fernando Rey

Horixe bai bekoki urdineko **amazona** ederra! Jon Muñoz

---

amazoniko *izond* Amazoniari dagokiona.

Imajinatu ezazu eszena: astapotro ero amorratu bat, burmuina kokainaz edo anfetaminaz gainezka, eta, erreka **amazoniko** baten inkontinentziaz, *non sequiturs* eta non sequiturs bota eta bota sekula deus ulertu ez duten entzuleen gainera. Karlos Zabala

---

amazulo *izond adkor* haurrez mintzatuz, beti amarekin egon nahi duena. ik **aitazulo**.

Bazegoen ia mehatxua egiten zuen hitza ere, **amazulo** esaten zitzaion kalean amarekin edo amaren inguruan ibiltzen zen mutikoari. Joseba Sarrionandia

Amazulo izatea egotzi dizu maiz aitak. Xabier Montoia

Anaia zaharrena langiletzat zeukaten; bigarrena urduria omen; hirugarrena **amazuloa**... eta ni, zazpigarrena, neska, gaiztotzat nindukaten. Pako Aristi

Hemengo gizonak oso **amazuloak** dira. Ana Urkiza

Gaurko rokero **amazuloak** baino ausartagoak zirela esan daiteke, dudarik gabe. Pako Aristi

Alabak hala adoratzeak (gertatu izan balitz) ezinegona sortuko ziokeen; hotzikara emango ziokeen, ume txoro **amazulo** bat hazi izanak. Anton Garikano

Gero, beharbada uste baino **amazuloago** naizelako eta egun osoa bakarrik eman dudalako, amaz eta aitaz oroitzen hasi eta doi bat tristetu naiz. Patxi Zubizarreta

---

ambar ik **anbar**.

---

ameba 1 *iz* uretan bizi den organismo zelulabakar bizkarroia.

Ameba mugitzen den bezala mugitzen da globulu zuria (biologiako klasean lehenengo aztertu ohi den izakia da **ameba**). Irene Aldasoro

Amebak eta bakteriak ugari zituenez gero, irakin egin behar. Gotzon Garate

Badirudi hitzaldi luzea bota niola **amebei** buruz, hots, Tampicoko hotelei buruz. Joxe Austin Arrieta

Oker ez banago, genomarik handiena **amebena** da. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Ameba nintzelarik denok itsas bero batean ginauden. Jose Angel Irigaray

Izan ere, **ameba** bat bihurtu da Euskadi, zeinak, bere pseudopodoak iparraldetik luzatuta, Espainia Handiaren hiriburua irentsi nahi duen. Joan Mari Irigoien

---

ameboide *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi) izond* mikrobioez mintzatuz, ezaugarrietan amebaren antza duena.

Kasu horietan, hondakinak epitelioa gurutzatuz iraizten dira, beharbada hondakinak hartzen eta garraiatzen dituzten zelula **ameboideo** fagozitikoen laguntzaz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Korronte zitoplasmatikoak eta mugimendu **ameboideak**; irristaketa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurrera egiteko modu horri '**ameboide**' deritzo, Amoeba proteus protozooaren mugimenduekin duen antzekotasuna dela eta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Infekzio bat edo kalte bat dagoenean, itxura **ameboidea** edo adarkatua hartzen dute, luzakin lodiagoekin atsedenean daudenean baino, eta gorputza handitu egiten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Amoebozoa edo amebozooak protozoo rhizopoda **ameboideen** talde handi bat da, barneko fluxu zitoplasmatikoaren bitartez mugitzen diren izaki bizidun gehienak biltzen dituena. ETC-entziklopedia

Zelula **ameboideak** dira, eta mugitzeko gaitasuna dute. ETC-entziklopedia

Bestalde, protoplasto hauek itxura **ameboidea** hartzen dute, pseudopodoen antzeko protuberantziekin, egitura babesle eta gogorra ez dutelako. ETC-entziklopedia

---

amejoramendu *iz* Nafaroako foruaz mintzatuz, hobekuntza.

Foru jatorria duten komunitateek erabakitzeko eta kontsultarako duten ahalmenarekiko Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian, Gernikako Estatutuan eta Foru **Amejoramenduan** aitortutako eta babestutako eskubide historikoen potentzialtasuna zehaztuko duen akordioa. Berria - Euskal Herria

---

amelu *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* iztupa.

Harigaiak bereizteko, txarrantxatu egiten zen; harigai leunena, kirrua, eskuetan gelditzen zen; harigai zakarra, **amelua**, txarrantxan gelditzen zen. ETC-literatura, saiakera

---

amen **1** *iz* otoitzen bukaeran esaten den latinezko hitza, “halabiz”-en kidea; eskuarki ironiaz erabiltzen da.

-Amen -esan nion, eta orduantxe etorri zitzaidalarik gonbixaren izen zientifikoa: escorpaenidae familiakoa da. Edorta Jimenez

Gainera, gehienez ere tiro batzuk hartzen dituk sorbaldan, muga igarotzen ari haizela, eta **amen**. Josu Zabaleta

Bigarren txapeldunak, antifaz eta guzti: **"Amen"**. Bernardo Atxaga

Bidean Jainkoa izango ahal dut lagun, **amen**! Anjel Lertxundi

2 ***amen batean*** *adlag* une guztiz laburrean.

"Amen batean aldatuko lukek kalearen itxura. Anton Garikano

Ez nintzen oso tripaki zalea, baina aseak ez bezala begiratzen baitio goseak sagar mailatu bati, **amen batean** irentsi nuen atera zidaten platerkada ez oso ugaria. Anjel Lertxundi

Aita, Van Daan eta Peter **amen batean** jaitsi ziren. Josu Zabaleta

Amen batean, Gorkaren hatz arinek pilota bat egin dute zangoari erauzitako txaplatekin. Aingeru Epaltza

3 ***amen egin*** amen esan.

Aitari **amen egin** eta paparrekoa kendu izan banu, inolako arazorik gabe joango nintzen zeppelina ikustera lagunekin. Anjel Lertxundi

Aita, Eulogioren esana erdizka bete zuen seme hura, jenio bizikoa zen eta nekez **egiten zien "amen"** inoren esanei. Xabier Etxabe

Ez dinat esaten esandako guztiari **amen egiteko**. Arantxa Iturbe

-Amen! -esan zuen, besteenari berea erantsiz. -Prest? -itaundu nion, **amen egin** barik. Edorta Jimenez

4 ***amen erran*** besteren nahiei besterik gabe baietz esan.

Baditake haatik deputatuek nahiko dioten hunkialdi bat edo beste eman gobernuaren xedeeri, erakusteko hor direla eta ez direla beti paso joaiten ahal, **amen** erran-eta kito! Herria

Frantses katoliko zintzoek ongi ikasiko genuen **amen** erraten itsutuki Filipe Pétain gidari "zuhurrari", italiarrek jadaneko Benitori, alemanek Adolfori eta espainolek Patxikori egin ohi zuten bezala. Piarres Xarriton

Eta horrela urtero, eta betiko hozkailu zahar kakazuak, eta **amen** erran orduko belzten zaizkit hilotzak, eta orduan lehenbailehen ehortzi behar. Aingeru Epaltza

5 ***amen esan*** besteren nahiei besterik gabe baietz esan.

Sentitzen dut aitortu beharra, baina gogaitu egiten nau bere mendekotasunak, gehiegizko begiruneak, **amen esateko** joerak; izan ere, egiten dudan guztia iruditzen zaio miresgarria. Ramon Saizarbitoria

Orduan ulertu dut Dabidengana ez naizela joan besterik gabe bakezkoak egitera eta, lehen bezala, amen, **amen esatera**. Patxi Zubizarreta

Eta ikusi nahi nuen alabak ez zuen txintik ere esan, den-denean bere gurasoei **amen esaten** eta obeditzen dien neska baita. Fernando Rey

Etxeko lanak antolatzeko Cristinak eman zituen ordenak, edo proposamenak, beste biek **amen esan** baikenion guztian. Xabier Mendiguren Elizegi

6 ***amen-omenka*** *adlag* aburumenka, iritzira.

Alferrik ari gaituk gai honetaz **amen-omenka**. Antton Olano

7 ***amen-omen***

Bigarren hitza lehenengoaren metagrama ere izan daiteke: **amen-omen**, jirabira, sorgor, hola edo hala, oso eta oro, sits eta bits, sor eta gor, sor eta lor, zinki eta finki, zabal eta zabar, zalantza-balantzak, zor eta lor, zur eta lur... Iñaki Arranz

8 ***amen-omenka***

Alferrik ari gaituk gai honetaz **amen-omenka**. Antton Olano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amen amen (3); **amen batean** (28); **amen egin** (4); **amen egiten** (3); **amen erran** (5); **amen erran orduko** (3); **amen esan** (8); **amen esaten** (3); **amen jesus** (3); **eta amen** (17)

---

amenazo ik **amenazu**.

---

amenazu *(ETCn **57** agerraldi; orobat **amenazo** ETCn **27** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **mehatxu** agertzen da) iz* mehatxua.

Zer egin behar da bereziki guztion ongiari **amenazu** egiten diola dirudien arriskuari dagokionez? Ibon Uribarri

Urduri antzean eta **amenazu** -aurpegiaz hitz egiten zuelako beti. Fernando Rey

-**amenazu** keinua luzatu zidan olgetan Liviak-. Joxemari Iturralde

Telefonoz deitu ohi zidan tarteka, desorduetan askotan, onez onean jeneralean baina **amenazoekin** ere bai tarteka, erantzungailuan mezu izugarriak utziz. Joxean Agirre

---

amenazuka *(orobat **amenazoka**) adlag* mehatxu eginez.

Une hartan, zerrizainak hartu zuen arkua, eskaleari eramateko; ezkongaiak **amenazuka** hasi zitzaizkion. Juan Kruz Igerabide

Amenazuka beti, onbeharrez. Arantxa Iturbe

Baina, intrusoak aldegin nahiko ez balu, bere lurraldearen jabe deneko txantxangorria **amenazoka** eta imintzioka hasiko da, bere indarra erakusteko:Beharbada senarra jakitun zegoen ordurako edo **amenazoka** hasia zuen. Patziku Perurena

Gizasemeari erreparatu zioten ondoren, eskuak airean **amenazoka** astintzen segitzen zuen arren ez baitzuen ezer esaten, edo ez baitzitzaion ezer entzuten, zerbaitek ahotsa ukatu balio bezala. Joxean Agirre

---

amenduztar *iz* Amenduzekoa, Amenduzeko biztanlea.

Igandean iragan dira Amenduze-Unason bozak, beren kargua utzia zuten unasotarra eta 4 **amenduztarrak** ordaintzeko. Herria

---

amengatu, amenga(tu), amengatzen da *ad* mendekatu.

Ordainez izraeldar soldadoeri dira **amengatu** Palestindarrak, bainan ere jende xeheari, bolboraz beteak diren auto edo bertze tresna batzu zartaraziz karrika eta plazetan. Herria

Zueri eta zuen etxekoeri **amengatuko** gira. Marzel Etxehandi

---

amenka **1** adlag amen esanez.

Bartolome otoitzean eta beste denak **amenka**, hala da ze, abagunea baliatu behar nuela erabaki nuen. Edorta Jimenez

amenstu ik **amestu**.

---

amenorrea *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi) iz* emakumeez mintzatuz, hilekorik ez izatea.

Emakumearengan, **amenorrea** menstruazio hileroko-isuririk ez izatea da. ETC-entziklopedia

Beste batzuengan, berriz, ez da agertzen: halakoetan, banakoa haur-tankerakoa da, eta **amenorrea** edo dismenorrea du. ETC-literatura, saiakera

Ez dira oso irekiak gai horretan, baina ezin da **amenorrea** batez axolagabetu. ETC-literatura, saiakera

Praktikan, ehiztari-biltzaile nomadek beren haurrak gutxi gorabehera lau urteko tartearekin izaten dituzte, bularra emateagatiko **amenorrearen**, sexu-abstinentziaren, haur-hilketaren eta abortatzearen bitartez. ETC-literatura, saiakera

Emakumeen kasuan bereziki, gantz gutxiegi edukitzeak **amenorrea** eragiten duela azaldu du, alegia, hilekoa galtzea. ETC-prentsa

Guztiak batera pilatuak balira, agian erdietsiko lukete nolabaiteko demokrazia sexual tamalgarri bat -malnutrizioarena, adibidez-, baina, orduan, ziurrenik gorputz gosetuak izatetik gorputz gosetu sexutuak izatera pasako lirateke, **amenorrea** agertzean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondorioz, emakume anorexiko gehienek hilekoa galtzen dute, eta **amenorrea** gertatzen zaie gutxienez hiru hilabetez jarraian. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gonaden arazoak: **amenorrea**, antzutasuna, haurdunaldian fetuaren malformazioak, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aments[1] *iz* ametsa.

Nahi duenak **aments** ederrez beterikako egun bat pasatu badu segur begien asetzekoa eta arimaren goxatzekoa Ezterenzubiko bortuetan. Herria

Eta ez erran niri bertze tokietan ere eskuaraz mintzatuko zarela, ez erran bertze Eskual Herri bat nahi duzula itsasoz haindian asentatu; hori ez da **aments** bat beizik. Xipri Arbelbide

Bai, ez gaiten has **aments** lilluragarrietan, eta segi dezagun, egunean egunekoa gozatuz, beti egun hobeen esperantzan egonez! Herria

Egiaren errateko, zaldietako bat, urteko garainoa, Mehaineko Miru tratulantaren etxean utzi eta Arbideraino jarraitu zuten, uharrak uharra **aments** zeukala, eta handik berriz Otsabidera. Itxaro Borda

---

aments[2] *adlag* bederen; segurik, zalantzarik gabe.

Bordelen aguardienta zerrientzat zela uste zutena, **aments**? Elena Touyarou

Galda niezaioke berari, ea bere ebanjelioa irakasteko nahitaez darabilen gramatika, norena ote den: aingeruena **aments**, ala gaskoinena? Piarres Xarriton

-Zer zaigu eta, gure anderea gaitzitu, **aments**. Eneko Bidegain

---

amerikana *iz* telazko jaka, solapaduna eta botoi ilara batez lotzen dena.

Sorbaldetan justuan sartzen zitzaion **amerikana** arraildu bat zeraman soinean. Unai Iturriaga

FMIn erabiltzen zituen gorbata eta **amerikana** multikolore bitxiengatik ospetsu egin zen kataluniarra ziur ageri da bere emaitzez. Iñaki Heras

Diruok tolestu eta **amerikanako** poltsiko batean gorde zituen. Unai Iturriaga

Lokaleko atean beste tipo mehe bat zegoen, kanpera diskretu beltzak, praka beltzak, lepodun jertse fin beltza eta larruzko **amerikana** tipoko beltza. Unai Iturriaga

---

amerikanista *izond* AEBen aldekoa.

Eta ustez **amerikanista** nintzelako. Oskar Arana

---

amerikano 1 *iz* pertsonez mintzatuz, amerikarra, eskuarki Estatu Batuetakoa.

Igandean jaka jantzita mezatara doan **amerikano** bat bezalakoa. Karlos Zabala

Hantxe zegoen, lehen bezain beldurgarri, Martinen eta Teresaren aita, Berlino Begigorriya; hantxe, Iruaingo gordelekuan egondako **amerikanoa**, edota Susanak aipatutako fusilatuen taldea; hantxe, beti bezala, azken errainu hura ere, Angel, nire aita. Bernardo Atxaga

Zure osaba batek nire aitaren lagun bat salbatu zuen, Alaska hoteleko jabea, **"amerikanoa"** esaten ziotena. Bernardo Atxaga

Orduan ostatuan gizon bat sartu zunan tarrapataka, Frantzia Librearen irratian **amerikanoak** Europaren salbatzera zetozela oihuka. Itxaro Borda

Amerikanoek pentsatu behar dute espainolok mozoloak garela! Josu Landa

Mundu bat han zen, bozkarioz ezin errexitua, **amerikanoei** esku zartaka. Marzel Etxehandi

Nire amorrazioa, beti ere **amerikanotzat** hartzen nautelako, zuria izateagatik ez bestegatik. Joxe Austin Arrieta

Gerla Handi" horren ondotik, **amerikanoen** laguntzarekin, frantses eta ingeles aliatuek gaina hartu zutelarik, 1918an, Georges Wilson Ameriketako presidenteak berriz aipatu zituen aspaldiko Nazionalitateen printzipioa eta Populuen Autodeterminazio Eskubide agertu berria, printzipio horien arabera antolatu nahiz Europako mapa berria. Piarres Xarriton

Amerikano puta horiek! -neofitoak paper-sorta bat gordetzen zuen bere altzoan; horretaz ohartu eta datua buruan gorde nuen-. Jon Alonso

2 ingeles hizkuntzaren aldaera, Estatu Batuetan mintzazen dena.

Frantsesez hitz egin zion, eta ez **amerikanoz**. Jon Muñoz

3 *izond* Amerikakoa, eskuarki Estatu Batuetakoa.

Ernest Hemingway eta Martha Gellhorn senar-emazte **amerikanoei**. Edorta Jimenez

Kapistun zuen kide, **Amerikanoa**, ikaragarri gizon azkarra, adinekoa, denek **amerikanoa** deitzen zutena, nahiz eta gaskoia zela jakin. Koro Navarro

Chucken garaiko neska **amerikano** bat ematen dut. Karlos Zabala

Erakunde zientifiko **amerikano** batek erizain titulatu bat behar du bidaia batean parte hartzeko. Joseba Sarrionandia

Norabidez aldatu nintzen Madeleine geltokian, oporretan zirela ageri zitzaien turista **amerikano** adinduen hatzetarik; argazki makinak lepoan tilingo zeramatzaten eta goraki mintzo ziren: *okey* handik, *good* hemendik, guztia *beautiful* atzematen zutela! Itxaro Borda

Helikopteroa pausatzearekin batera militar **amerikanoak** uniforme zuriekin eta fusilak eskuan jauziko dira elurtzara. Joseba Sarrionandia

Bizitza oinarri-oinarrian arina zela eta hartzeko bere neurrian, alaitzeko, jateko ase arte, edateko ardo freskoa, edo garagardoa, eta erretzeko Martinek ekartzen zigun tabako **amerikanoa** edo Josebak ezti usaineko belarrarekin egiten zituen zigarrotxoak. Bernardo Atxaga

Neskek, ohi zuten jantzi tipikoa beharrean, arropa **amerikano** arruntak zeramatzaten soinean. Joxe Austin Arrieta

Bularretako **amerikanoa** zen, Norma Lúciak oparitutakoa, azken teknologia garai hartan, hatzez pixka bat sakatu eta ireki egiten zen. Karlos Zabala

Rousset medikuak, Lyon-eko medikuntza fakultateko erakasle dermatologoak dio tanke **amerikanoak** hor ditugula zenbait aste barne. Marzel Etxehandi

Gorputz erdiko plano **amerikanoa** den argazkia sugarretan kixkali ahala, argazkiko gizasemeak aingira batek arroka artean geldirik dagoenean egiten duen dardara kurbatu bera egiten duela dirudi, errauts bihurtzen ari den arren hotzikara balu bezala. Harkaitz Cano

Lehenbizikoan, ofiziala zen itsas armada **amerikanoaren** itsasontzi batean, eta, bigarrenean, belaontzi horietako batean etorri zen. Karlos Zabala

Gauza hauek pelikula **amerikanoetan** ere ez dituk gertatzen! Xabier Etxabe

Jendea erakartzeko era bitxia alafede, bai eta **amerikano** samarra ere! Karlos Zabala

Errealismo handiko marrazkia zen, oso **amerikanoa**, bere txikian xehetasun handikoa, harmaila, ate, berdegune, taberna, markagailu eta guzti. Karlos Linazasoro

4 (izlag gisa, ipar)

Laster jakin zen **amerikano** airekoak zirela eta Miarritzeko hondartza edo plaiara bonbak aurtiki zituztela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez dakit egiazki egin dienez, Renault-en kontre, zeren eta gero **Amerikano** edo Japones autoak erosten balinbadütügü enetako ber saltsa düzü. Menane Oxandabaratz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amerikano ala (3); **amerikano armadak** (4); **amerikano bat** (8); **amerikano batek** (3); **amerikano baten** (3); **amerikano deputatu** (3); **amerikano edo** (4); **amerikano eta** (18); **amerikano gobernuak** (4); **amerikano hil** (4); **amerikano hilak** (6); **amerikano horiek** (4); **amerikano minixtroak** (6); **amerikano president** (7); **amerikano presidenta** (9); **amerikano presidentak** (24); **amerikano presidentaren** (3); **amerikano soldado** (7); **amerikano tropak** (6); **amerikanoa eta** (3); **amerikanoak berak** (4); **amerikanoak eta** (7); **amerikanoak hemen** (5); **amerikanoak hemen dira** (3); **amerikanoak saddam** (3); **amerikanoek berek** (6); **amerikanoek beren** (5); **amerikanoek diote** (3); **amerikanoek eta** (4); **amerikanoek ez** (7); **amerikanoek ez dute** (3); **amerikanoek irakian** (3); **amerikanoek nahi** (5); **amerikanoek preso** (3); **amerikanoen alde** (4); **amerikanoen alderat** (3); **amerikanoen arabera** (3); **amerikanoen eskuetan** (3); **amerikanoen eta** (4); **amerikanoen kontra** (10); **amerikanoen kontrako** (5); **amerikanoen laguntzarekin** (5); **badira amerikano** (3); **bremer amerikano** (3); **bush amerikano** (28); **bush amerikanoa** (5); **bush amerikanoak** (8); **clinton amerikano** (7); **da amerikano** (4); **da amerikanoak** (3); **dira amerikano** (3); **dira amerikanoek** (3); **dituzte amerikanoek** (7); **du amerikano** (8); **dute amerikano** (3); **dute amerikanoek** (8); **dutela amerikanoek** (3); **ere amerikanoak** (3); **ere amerikanoek** (6); **ere amerikanoen** (3); **eta amerikano** (10); **eta amerikanoa** (3); **eta amerikanoak** (5); **eta amerikanoek** (11); **eta amerikanoen** (6); **ipar amerikano** (4); **ipar amerikanoa** (3); **ipar amerikanoak** (4); **ipar amerikanoek** (4); **lehen amerikanoa** (6); **lehen amerikanoaren** (4); **obabako lehen amerikanoa** (6); **obabako lehen amerikanoaren** (4); **soldado amerikano** (17); **soldado amerikanoak** (4); **zen amerikanoen** (3); **zuten amerikanoek** (3)

---

amerikanokeria *iz* amerikanoei dagokien zertzelada gaitzesgarria.

"I love you" esan ez esan borrokan aritzen nintzen neure buruarekin: pelikuletako **amerikanokeria** artifiziala iruditzen zitzaidan eta, azken batean, ez nengoen oso seguru hori esan behar ote nizun, nola erreakzionatuko ote zenuen, zer nolakoak ziren nire sentimenduak edo zer eragingo zuen horrek gero. Xabier Mendiguren Elizegi

---

amerikanotu, amerikano(tu), amerikanotzen da/du *ad* amerikanoen ezaugrriak hartu.

Emeki emeki bainan segurki **amerikanotzen** ari gara Frantzian: jauntzi -jean famatua- dantza eta kantu, tabakoa Philip Morris delakoekin, edaria ere gure gazteek Coca Cola-ri emanak direla. Herria

Holako batean, jendetasunez eta elkartasunez, bi sosen zentzua baduen jendea bera ere **"amerikanotzen"** da nolazpait. Herria

---

amerikanu *izond* amerikarra.

Euskal kulturak espainolak eta **amerikanuak** gainditu ditu gauza batean: euskal letratua munduko inor baino doktrinarioago da. Patziku Perurena

---

amerikar 1 *izlag* Amerikakoa, Amerikari dagokiona; eskuarki, Estatu Batuetakoa, Estatu Batuei dagokiena. ik **amerikano**.

Amerikar kontsulatuak zerrenda hori aztertu eta itsaso-konpainiari itsasontziak zein marinelekin ezin nabigatu duen ohartarazten du. Edorta Jimenez

Henry Ford **amerikar** automobil-egilea. Iñaki Mendiguren

Ulysses Grant **amerikar** lehendakariak. Koro Navarro

Krisi honetan Mendebaldeko herriak, eta agian **amerikar** herria batez ere, ohartzen ziren erantzukizun-zamaz. Iñaki Mendiguren

Amerikar Batasunaren estatu sateliteek, ikuspegi gehienetatik, ekintza-askatasun inbidiagarria zuten arren, Sobietar Batasunaren sateliteei erabat ukatzen zitzaiena. Iñaki Mendiguren

Guk **amerikar** hiritarren handitasuna baino ez dugu onartzen. Lopez de Arana

Amerikar juduen aldean, **amerikar** arabiarrak ia ez zeuden kontuan hartzerik kopuruz. Iñaki Mendiguren

Zenbait urte geroxeago, pilotarien balentriak miresten zituen Hemingway **amerikar** idazleak askotan hara joateko ohitura hartu omen zuen. agureen begirunezko diosalen eta **amerikar** ofizialen mirespenezko begiraden artean. Ramuntxo Etxeberri

Uste zen etorkin guztiak, edo Europatiko etorkin guztiak, behintzat, berehala bihurtuko zirela **amerikar** abertzale "porrokatu". Iñaki Mendiguren

Bi mundu-gerrek, belaunaldi baten bizitzan egindakoek, **amerikar** gerra zibilak Hegoaldea bezain gogor Alemania eta beraren errusiar eta Mendebaldeko europar biktimak suntsitu zituztenek, ia kalterik gabe utzi zituzten Estatu Batuak. Iñaki Mendiguren

Poe-k **amerikar** literatura mota berri baten alde egiten zuen borroka, ingeles eta Europar eraginik gabeko bertako literatura baten alde. Oskar Arana

Aukera izan dut **amerikar** eta britainiar kazetariekin, ezkertiar kutsuaren ospea duten batzuk tarteko, hitz egiteko. Edorta Jimenez

Liburuak **amerikar** senaren, arimaren erakusgarri zorrotz baina ez-fidela izan behar zuela; kritikoa. Iban Zaldua

Amerikar eta europar merkatuak zabaldu izanaz gogoz baliaturik, Ekialde Urrunak ez du bere kideen manufaktura askorik inportatzen. Koro Navarro

Kanpoan, euriak atabalatzen zituen **amerikar** erako sukaldeko leihoak. Jon Muñoz

Beste **amerikar** aditu batek, W. L. Thorp-ek, bildutako "negozio-analetan" oinarrituta, estatistikoak ez ziren datuetatik hirugarren aditu **amerikar** batek, F.C. Mills-ek, merkataritza-ziklo "labur" baten batez besteko uhin-luzera industrializazioaren lehenengo etapetan 5,86 urtekoa zela kalkulatu zuen. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo gisa)

Familia **amerikar** guztietan falta ezin daitekeen osaba irlandar musugorri mozkortia. Harkaitz Cano

Emakume **amerikar** horietako bat. Joxe Austin Arrieta

Soldadu **amerikar** muturbeltzek osaturiko lerroaz haraindi, Roma denda eta Angelaren etxea izandakoen hondakin pila altxatzen zen, artean ere kea botaka. Alberto Ladron Arana

1938an, fisikari **amerikar** batek, Cherter Carlsonek hain zuzen ere, fotokopiagailua asmatu zuen, nahiz merkatuko fotokopiagailuak ez ziren agertuko 1960 arte. Pello Salaburu

Xake joko apokaliptiko horren estrategia-kalkulatzaile **amerikar** batek asmatu erregela ez baitugu beharrik ahantzi: bietatik batek irabazten duen ber, biek galtzen dute. Piarres Xarriton

Pauline Hall (1860-1919) *prima donna* **amerikar** ospetsua. Xabier Olarra

Hirugarren aditu **amerikar** batek, F.C. Iñaki Mendiguren

Bonbardaketa iragartzen zuten sirenen marru luze tristeaz eta hura baino mehatxagarriagoa zen hegazkin **amerikar** erraldoien burrunba baxu eta betibatekoaz mintzatzen diren bitartean. Alberto Ladron Arana

Long Islanden maniobrak egiten ari zen gerrauntzi **amerikar** batek nahigabe jaurtitako misil galdua izan zen TWAko hegazkina leherrarazi zuena. Harkaitz Cano

Beti taberna **amerikar** batean mozkortuta, borroka-zelaitik oso urrun. Lopez de Arana

Erran zion enpresa **amerikar** batentzat lan egiten zuela eta idazkari gazte motibatuak behar zituztela. Ramuntxo Etxeberri

Guri gosaria prestatzeko lanean ziharduten ama-alabak eztitan zeuden musika **amerikar** komertzialarekin. Edorta Jimenez

Gosarirako bertan izango gara, gosari **amerikar** bat, gosari on bat, hemen betidanik prestatu izan direnen modukoa. Lopez de Arana

3 (izen gisa)

Mahaiaren inguruan, **amerikar** bat, neozelandar komunista bat, hego-korear bat, irlandar bat eta bi euskaldun. Harkaitz Cano

Amerikar bat, David Schubert, bi urte sabatiko pasatzera etorri zen, eta berekin ekarri sagu-neuroblastoma zelula batzuk. Juan Garzia

Amerikar gazte bat, hitzontzi hutsa. Joxe Austin Arrieta

Duela zenbait urte **amerikar** baten liburu bat irakurri nuen, *Merezi al du bizitza bizitzea?* izenekoa. Monika Etxebarria

Ikusi besterik ez dago **Amerikar** whiskyzaleak zein aise bota zituen espainiar neurritsuak beren lurretatik. Xabier Olarra

Hemingwayren portaeran halako larrialdi egoeretan beste edozein **amerikar** leialek egingo ez lukeen ezer igarri. Edorta Jimenez

Atzo arratsaldean bertan **amerikar** ustel horiek libre utzi zitean Torrelli. Alberto Ladron Arana

Amerikar liberal bat naizela beraz? Ez! Alemaniar abertzale bat naiz. Ramon Etxezarreta

Beste **amerikar** aditu batek, W. Iñaki Mendiguren

4 ***afrikar-amerikar*** *(corpusean ez dago; ETCn **82** agerraldi)*

Ama **afrikar-amerikarra** eta aita indiarra duela esan dit, lañotasunez, berak behintzat **'afrikar-amerikar'** horretan zuzentasun politikoaren zama ez duela erakutsiz. ETC-literatura, saiakera

Bai hildako mutil haren deitura berekoa, esklaboen deitura, milaka edo agian milioika **afrikar-amerikarren** esklabo-deitura arrunta. ETC-literatura, saiakera

Eskuineko populistek sustatzen dutena herriaren (jendartea) eta elitearen zein beste hirugarren talde baten arteko talka da, non, adibidez, etorkinak, islamistak, edo **afrikar-amerikar** ekintzaileak sar daitezkeen. ETC-literatura, saiakera

Haiek diotenaren arabera, "pobre" egiten zaituenak (zuri ala beltz, emakume, armeniar edo **afrikar-amerikar** egiten zaituenak) ez omen luke zure pobretasuna baldintzatu behar (zure klase sozioekonomiko edo politikoa): horrek ba al dauka zentzurik? ETC-literatura, saiakera

Gehienak, gutxiengoren batekoak dira: gazteak, hispanoak edo **afrikar-amerikarrak**. ETC-prentsa

Demokrata izateaz gain, **afrikar amerikarra** ere bazen. ETC-prentsa

Juduena ez da, ordea, McCainen alde lanean ari den koalizio bakarra, badira gehiago ere, besteak beste, asiar-amerikarrena, **afrikar-amerikarrena**, gerra beteranoena, hispanoena eta abar eta abar. ETC-prentsa

Milaka dira, jada, lehen aldiz bozkatzera joan direnak, asko **afrikar-amerikarrak**. ETC-prentsa

Gehienak, gutxiengoren batekoak dira, batez ere, gazteak, hispanoak edo **afrikar-amerikarrak**. ETC-prentsa

Afrikar amerikarren esperientzietatik abiatuta historia alternatiboa proposatzen dute bere lanek, orainaren konplexutasuna agerian utziz. ETC-prentsa

Beste alde batetik, **afrikar amerikarren** bluesak bere errealitate gordinaren kutsua eman dio metalari, galera, depresioa edo bakardadea azpimarratzen baititu. ETC-entziklopedia

1965 - Malcolm X, ministro musulman **afrikar-amerikarra**, beltzen eskubideen aldeko borrokalaria, eraila (j. 1925). ETC-entziklopedia

5 ***afro-amerikar***

Bizar labana, iz. Kaukasiarrek beren edertasuna handitzeko, mongoliarrek beren burua txorimalo bihurtzeko eta **afro-amerikarrek** beren balioa indartzeko erabiltzen duten tresna. Xabier Olarra

Hala, jazz emanaldiak, musika **afro-amerikarrekoak** eta Japoniako musika tradizionalaren emanaldiak eskainiko dituzte. Berria - Kultura

Afro-amerikarrek ostera, lurrerantz, sustraietarantz begira dantza egiten ditek... Harkaitz Cano

NAISON x fordham unibertsitateko institutu **afro-amerikarreko** irakaslea. Berria - Harian

6 ***amerikar ahate txistulari*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Amerikar ahate txistularia ("Anas americana") Anatidae familiaren ahate ez-domestikoa da. ETC-entziklopedia

7 ***amerikar amets***

Herrialde pobrea da, herrialde iluna eta tristea, etsia, **amerikar ametsik** eta amerikar heroirik gabea. Koro Navarro

The american dream, **amerikar ametsa**. Gotzon Garate

Gure herriak AEBetako ekonomiarentzat baliagarria den immigrazio sistema behar du, baita **amerikar ametsa** islatuko duena ere. Berria - Mundua

Amerikar ametsaren lekuko. Berria - Kirola

8 ***amerikar bisoi*** *(corpusean ez dago; ETCn **50** agerraldi)*

Amerikar bisoia ("Neovison vison") Amerikan bizi den bisoi espeziea da. Euskal Herrian ere aurki daiteke bere larruaz baliatzeko ekarri baitzen duela 50 urte. ETC-

entziklopedia

Bertan hainbat hegazti eta arrain espezie bizi dira. Azken urteetan, dortoka eta **amerikar bisoien** erasoak direla eta, kalte handiak jasan ditu bertako berezko faunak. ETC-entziklopedia

Espezie inbaditzaileen adibide dira: zebra-muskuilua, ahate herdoiltsua, **amerikar bisoia**, ur-ipurtatsa, ibai-karramarro gorria, Niloko perka, "Caulerpa taxifolia", "Senecio inaequidens", "Boiga irregularis" sugea, "Achatina fulica" barraskiloa eta inurri eroa. ETC-entziklopedia

9 *amerikar bisonte* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Amerikar bisonteari ("Bison bison") ingelesez "buffalo" edo espainieraz "búfalo" esan ohi zaio Ameriketako hizkuntza hauetako formetan. ETC-entziklopedia

10 *amerikar futbol*

Zer dute elkarrekin George Bushek eta John Kerryk? Galletak, muffin-ak? **Amerikar futbola**? Lorezaintza? Arerio sutsuenek bat egin dezakete gustu edo zaletasunetan, bizitzaren arlo garrantzitsuenez kontzeptu guztiz bestelakoak izan arren. Berria - Mundua

11 *amerikar gau* *(corpusean ez dago; ETCn 6 agerraldi)*

Amerikar gaua delakoa zinemagintzan egun argitan filmatutako eszenak gau giroko eszenak bailiran simulatzeko teknika bat da. ETC-entziklopedia

12 *amerikar haritz* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Haritz gorria, **amerikar haritza** edo ipar haritza ("Quercus rubra" edo, batzuetan "Quercus borealis") Quercus generoko zuhaitz espeziea da. ETC-entziklopedia

Handik eta lehenengo punturako bidean, Barazarren aurki ditzakegun zuhaitz espezie ugariez ohartuko gara: birlandatutako Korsikako larizio pinua, Douglas izeia, **amerikar haritza**, Japoniako laritza eta Lawson altzifrea bezalakoak dira nagusi. ETC-prentsa

Gazteluondon, Arrasate pasealekuaren gaineko aldean siku dagoen **amerikar haritz** bat, Gorostiza pasealekuan, antzinako araztegian dauden beste bi zuhaitz ere bai, eta Zaldibarko atzeko aldean, etxebizitza baten ondoko pago-lizar bat. ETC-prentsa

13 *amerikar-ingeles*

Irak hortan beti, **amerikar-ingelesen** aintzinatze hori beti luze Bassora hiri alderat. Herria

14 *amerikar inperialismo* *(corpusean ez dago; ETCn 9 agerraldi)*

Denborarekin, **amerikar inperialismoaren** oinarria bihurtu da. ETC-literatura, saiakera

Berlineko murruaren erorketa denboran Gorbatxov-en eta **amerikar inperialismoaren** kontrako herra adierazi zion munduari. ETC-entziklopedia

Bera judua izanik, Israelgo Estatuak Ekialde Hurbilean sarritan jokatu duen paperaz ere egin zuen berba, eta zelan Israel gura baino gehiagotan ipar **amerikar inperialismoaren** jopu izana zela salatu. ETC-prentsa

Garai hartan, jende ainitz, hoietan artista ezagunak, proiektuaren kontra agertu ziren: sobera gostaia, arte **amerikar inperialismoaren** egoitza, euskal artearentzat lekurik ez... ETC-prentsa

Halere, behin Sovietar Batasuna desagertu ondoren, **amerikar inperialismoaren** harrokeria gero eta lotsagabeagoaren aurrean, hautabide errealista hoberik ezaz, ez zaigu Europa Batuaren irtenbidea besterik gelditzen. ETC-prentsa

Izan ere, berehalaxe ohartu zen zerk eragiten zuen bere inguruko injustizia eta pobrezia ikaragarria: klase sozial zehatz baten interes ekonomikoak; **amerikar inperialismoaren** laguntza interesatuarekin, jakina. ETC-prentsa

Era berean, Teheranek sarritan salatu du "**amerikar inperialismoaren** esku hartzea. ETC-prentsa

15 *amerikar kopetazuri* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Amerikar kopetazuri, Fulica americana. ETC-entziklopedia

16 *amerikar kurrilo* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Amerikar kurrilo, Grus americana. ETC-entziklopedia

17 *amerikar labezomorro* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Espezierik ezagunenak **amerikar labezomorroa** ("Periplaneta americana", 30 milimetro mm-ko luzera), labezomorro arrea ("Blattella germanica", 15 milimetro mm-ko luzera), asiar labezomorroa ("Blattella asahinai", 15 milimetro mm-ko luzera) eta labezomorro beltza ("Blatta orientalis", 25 milimetro mm-ko luzera) dira. ETC-entziklopedia

18 *amerikar lehoi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Amerikar lehoia edo Ipar Amerikako haitzuloetako lehoia ("Panthera leo atrox" edo "Panthera atrox"), Ipar Amerikan Pleistozenoan zehar bizi izan zen lehoi azpi-espezie bat izan zen. ETC-entziklopedia

19 *amerikar natibo* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Amerikar natibo hiritarrek gaur egungo AEBetan beren lekua bilatu eta aurkitzeko duten zailtasunez idatzi du. ETC-prentsa

Ez dira hainbeste dozenaka mila urte pasatu **amerikar natibo** esaten diegun horien hasiera-hasierako arbasoak hona iritsi zirenetik. ETC-literatura, saiakera

Martxoaren 24a - Matilda Joslyn Gage, estatubatuar emakumeen sufragioaren eta **amerikar natiboen** eskubide zibilen aldeko ekintzailea, abolizionista, librepentsalaria eta idazlea (h. 1898). ETC-entziklopedia

20 *amerikar perka* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Amerikar perka ("Micropterus salmoides") Centrarchidae familiako ur gezako arraina da, Ipar Amerikan bizi dena. ETC-entziklopedia

Elkarrizketa egin eta egun batzuk geroago egindako eta argitaratutako ikerketen arabera, sekula arrantzatu den perkarik handiena 4,3 librakoa izan dela jakin dugu, eta, beraz, Bush **amerikar perkaz** (largemouth bass, ingelesez) ari zela elkarrizketan. ETC-prentsa

21 *amerikar saltsa* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Amerikar saltsa tipulaz, tomatez, ardo zuriz, brandyz, gatzez, Cayenneko piperraz eta gurinez egindako saltsa emultsionatua da. Itsaskiekin edo zenbait arrainekin primeran bat egiten du. ETC-entziklopedia

Katilukada bat **amerikar saltsa** bota ondoren, eta arrozarekin nahastu, dena zurrupatu arte. ETC-prentsa

22 *amerikar tripanosomiasi* *(corpusean ez dago; ETCn 6 agerraldi)*

"Trypanosoma cruzi" Euglenozoaren barruko "Trypanosoma" generoko izakia da. Espezie honek **Amerikar tripanosomiasia** -Chagasen gaixotasuna- sortzen du gizakiengan eta beste animalia batzuengan Amerikan. ETC-entziklopedia

Hala ere malaria, disenteria, **amerikar tripanosomiasia** eta toxoplasmosi bezalako gaitz larriak sor ditzakete. ETC-entziklopedia

23 *amerikar txori zezen* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Amerikar txori zezen, Botaurus lentiginosus. ETC-entziklopedia

24 *amerikar zumar* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Amerikar zumarra ("Ulmus americana") hosto-erorkorreko zuhaitza da, 43 m-rainoko altuera izan dezakeena. Ekialdeko Ipar Amerikan du jatorria. ETC-entziklopedia

25 *amets amerikar*

Tom Waitsen mundua topikoz betea aurkeztu izan digute beti, **amets amerikarraren** alderdi ilunaren ordezkari ofiziala balitz bezala. Berria - Kultura

Helburu horrekin **amets amerikarraren** bila joango da, baina gero ikusiko du ez dela hainbesterako». Berria - Kultura

Amets amerikarra zuten hauek betetzeko. Iñigo Aranbarri

"Gaur egun, emakume askorentzat **amets amerikarrak** milioika milako distantziara dagoela dirudi, ezen ia denborarik ez baduzu lo egiteko, nork dauka denbora amesteko?», nabarmendu zuen Milwaukeen. Berria - Mundua

Erdialdeko Amerikan bi amets daudela diote: **amets amerikarra** eta Europako ametsa. Berria - Euskal Herria

26 *anglo-amerikar*

Anglo-amerikar kolonietan landako biztanleen beharrak betetzeko hazi ziren hiriak: espainiar kolonietan hirietako beharrak betetzeko hazi zen landako biztanleria. Iñaki Mendiguren

Non daude orain Iraken kontrako gerraren animatzaileak? Non daude Ameriketako Estatu Batuetako belatzak, inbasio **anglo-amerikarra** bozkarioz betetako irakiarrek txalotutako "paseo erraz bat» izango zela iragarri zutenak? Berria - Mundua

27 *arrano amerikar* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Sinbolo nazionala da: **arrano amerikarra** (Haliaeetus leucocephalus). ETC-literatura, saiakera

Arrano amerikarra duten urrezko txanponik handienak 28,4 g-ko masa du. ETC-zientzia, zuzenbidea

28 *barra amerikar* *(orobat **amerikano** g.er.)* prostituzioan aritzen diren emakumeak dauden taberna.

Gau hura goizaldeko ordu tikietan bukatu nuen, Alde Zaharreko **barra amerikar** batean, zutik egoteko gauza ez nintzela eta ipurdi estuko ukrainar baten istorio tristeekin tira ahala negarrez. Aingeru Epaltza

Zergatik frankismoaren garaian deitzen zitzaien **barra amerikarra** lizunkeria kutsua zuten gaueko taberna ilun eta argi-gorridun haiei? barrutik jaten ninduèn bakardadeari aurre egiteko, etxetik hurbil nuèn **barra amerikano** batera joaten hasi nintzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Barra amerikarra, gutxi zapaldutako alfonbra berde ilunak estaltzen zuen egongela erraldoia, estilo modernoko lanpara metaliko beltzak. Sonia Gonzalez

29 *bisoi amerikar*

Desagertzeko zorian dago haragijale txikia, bere habitataren eraldatzeak eta **bisoi amerikarrak** mehatxatuta; Nafarroan omen dago mundu osoko populazio handiena. Berria - Euskal Herria

Bisoi amerikarra arerio handia da europarrarentzat, eta ez dugu inolako arriskurik nahi. Berria - Euskal Herria

Beste alde batetik, "**bisoi amerikarrak** desagerraraztea eta larrugintzarako ustiategiak debekatzea» premiazko neurriak dira, espeziearen kinka konponduko bada. Berria - Gaiak

30 *bisonte amerikar* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Milaka **bisonte amerikar** hil zituen Buffalo Billek. [...] Esaterako, **bisonte amerikarra** kontserbatzeko neurriak bultzatu zituen. ETC-prentsa

31 *Erdialdeko Amerikar*

Ia denak Hego zein **Erdialdeko amerikarrak** izan ziren, hizkuntzagatik erraztasun handiagoa dutelako; Magrebeko emakume batzuk gero, baina Euskal Herrira bakarrik etorritakoak. Berria - Euskal Herria

32 *futbol amerikar*

Futbol amerikarreko, eta ziurrenik, AEBetako kirol hitzordu nagusia izango da gaur: superbowla. Berria - Kirola

Aski handia, aldi oro saski-baloia edo **futbol amerikarra** eskaintzen zuten telebistez mukuru zegoen. Xabier Montoia

Pittsburghko Steelersek eta Seattleko Seahawksek jokatuko dute **futbol amerikarreko** 60. final handia, Super Bowla, heldu den otsailaren 5ean. Berria - Kirola

Futbol amerikarreko finalean, Super Bowle-an, Justin Timberlake abeslariak Janet Jacksonen bularra begi bistan utzi ostean sortutako iskanbila berriz gerta ez zedin, CBS kateak (bi emankizunak eman dituena) irudiak kotrolatzea erabaki zuen. Berria - Kultura

33 *galoi amerikar* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hori bai, gero norberak ordenatu behar ditu litroak, tonak, **galoi amerikarrak** (3,78 litro) eta upelak (159 litro). ETC-prentsa

34 *gau amerikar* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Iragazki itxiak erabiliz (batez ere zeru-eremuetan) eta esposizioa nabarmen murriztuz, egun-argitan "gau-eszenak" graba daitezke ("**gau amerikarra**" izeneko efektua); hala, dirua aurreztu daiteke eta argiztapen-arazoak saihestu. ETC-zientzia, zuzenbidea

35 *haritz amerikar* *(corpusean ez dago; ETCn **47** agerraldi)*

Berehala ulertu zuten zer nahi genuen, eta ohol gaztelu bikaina egin zuten, neuk buruan neukana bezalakoxea, **haritz amerikarreko** ohol ederrak banan-banan tolestuta. ETC-literatura, saiakera

Beste agureek, itzalpetik, **haritz amerikar** baten enborrean bermatuta zelatatzen dituzte kidearen keinu guztiak. ETC-literatura, saiakera

Uraren gainean igeri dardaratian, **haritz amerikarren** eta astigarren hosto gorri batzuk. ETC-literatura, saiakera

Haritz amerikarrak, gorostiak, gaztainondoak, izeiak eta pagoak bidaide, paseo goxoa egingo dugu Enobietako urtegia inguratzen duen pistara heldu arte. ETC-prentsa

Ontze biologiko horrek gutxienez hiru urteko iraupena izango du Jerezko **haritz amerikarren** botetan. ETC-prentsa

Hiru harizti motetaz hitz egingo dugu, bertako hariztien basoak, haritz kandugabearen basoak eta **haritz amerikarraren** basoak. ETC-prentsa

Bertako espezieak erabiliko ditugu, bertakotuak ere bai - **haritz amerikarra** ...- eta inolaz ere ez inbasiboak. ETC-prentsa

Gaztainondoak eta **haritz amerikarrak** hazten diren lekuan, eskuinera egin, eta Oro iturriraino lagunduko digun basabideari eutsiko diogu tinko. ETC-prentsa

Bizkaiko Foru Aldundiak bere basoetan duela hamabost urte landatutako **haritz amerikarretan** orain hasi dira perretxikoak ateratzen, mikorrizatu egin direlako. ETC-prentsa

Arbola horien aurrean **haritz amerikarrez** osatutako baso bat dago: Explosivos Rio Tinto enpresak landatu zuen. ETC-prentsa

Orain, zedroa, sekuoia, Douglas izaia eta **haritz amerikarra** ari dira ugaritzen. ETC-prentsa

Birlandatutako espezieen artean, **haritz amerikarra** eta Austriako pinu beltza daude. ETC-entziklopedia

Horrez gain, birlandaturiko **haritz amerikarrak** eta pinu alertziar japoniarrak 46,6 hektarea inguru hartzen dituzte. ETC-entziklopedia

36 *indigena amerikar* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Ezaguna da (kolonialismoaren) "galtzaileei" geratzen zaien kontsolamendu bakarretakoa alkohola dela (irlandarrak, **indigena amerikarrak**, euskaldunak...). ETC-literatura, saiakera

Polinesia **indigena amerikarrek** populatu zutela defenditzen duen Heyerdahlen hipotesi ausartari jarraitu gabe, Kon-Tikiren bidaia eta gero Ozeano Bareko bi aldetakoen arteko harremanak izan zitezkeela -eta maiz- onartu beharra dago. ETC-literatura, saiakera

"Mendeetako harreman koloniala berdintasun fiktizio batean galdekatzeko asmoz", europarrak afrikarren eta **indigena amerikarren** maila berberean paratu ditu Itxaro Bordak. ETC-prentsa

Eta Gabriel Arestik idatziriko Egun da Santi Mamiña **indigena amerikarren** perkusio eta oihuen artean eman dute. ETC-prentsa

Bertako geografiaren eta **indigena amerikarren** bizimoduaren berri ematen zuten. ETC-entziklopedia

Errege etxeari ez zion inoiz bidali kintorik (bertako **indigena amerikarrei** kendutako urre eta zilarren ehuneko hogei). ETC-entziklopedia

37 *latino-amerikar* *(**5** agerraldi, liburu **1** eta **2** artikulutan; orobat **latinoamerikar** **43** agerraldi, **8** liburu eta **19** artikulutan)* espainolez edo portugesez mintzatzen diren herrialdeei dagokiena.

Zorraren aldaketa publiko edo pribatuko programek bultzaturik [...] **latino**-amerikar ekonomia zordunduenek hiperinflazioa ezabatu ahal izan zuten. Koro Navarro

Europar kapitalak, japoniarrak eta **latino**-amerikarrak (azken horiek, depreziazio lasterra pairatzen ari ziren tokiko diruetatik ihesi) dolarretan hasi ziren inbertsioak egiten. Koro Navarro

Ezker **latinoamerikarraren** eredua. Pako Aristi

Helenek literatura **latinoamerikarra** irakasten zuen. Bernardo Atxaga

Idazle **latinoamerikarren** abertzaletasun antiespainolaren aurka. Joxe Azurmendi

Errepublika **latinoamerikarretan**. Joxe Azurmendi

Latinoamerikarren artean, argentinarrena zen talde handiena. Jokin Urain

Latinoamerikar askok Espainiarekin hurbiltasuna bilatzeko ez duela gogorik batere erakusten. Joxe Azurmendi

38 *plano amerikar* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Zergatik aurkezle andrazkoak maizago ageri ohi dira **plano amerikar** edo orokorrean eta kolore beroekin -laranja, gorria- jantzita? ETC-prentsa

Javier Bardemen **plano amerikarrak** betetzen zuen pantaila erraldoia. ETC-literatura, saiakera

Berehala, berriz, tamaina bereko bineta segida bat dugu, non **plano amerikarrak**, ertainak eta lehen planoak topatzen ditugun. ETC-zientzia, zuzenbidea

39 *zinta amerikar* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Ongi erreparatzen badiozu, kuterraren kirtenak **zinta amerikar** pixka bat du itsatsia. ETC-literatura, saiakera

Ganibeta odolduarekin **zinta amerikarra** doi-doi ebaki, ukalondo paretik ezkerreko besoa hartu eta atzeraka okertu zion indarrez, ia laurogeita hamar gradutan jarriz. ETC-literatura, saiakera

Zinta amerikar hiper atomikoa, auskalo non lortua, gainean eratxikita urratuari aurrerabiderik emanen ez ziona. ETC-literatura, saiakera

Orduan ixten diete ahoa **zinta amerikarraz**, eta nonbaitera eraman behar badituzte, begiak estaltzen dizkiete, bidaian estresak hil ez ditzan. ETC-prentsa

Gaur, esaterako, makila batzuk, **zinta amerikar** pixka bat, eta bi futbol baloirekin egina du dena. ETC-prentsa

Ia lan guztietarako balio du munduko txapeldunak: **zinta amerikarra** bezalakoa da, ia edozer gauza konpontzeko balio duen itsasgarria. ETC-prentsa

Zinta itsasgarri grisak (**'zinta amerikarra'**) edo zinta isolatzaileak ere erabilera ugari ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Imajina al dezakezu itsaspena inoiz galtzen ez duen **zinta amerikar** bat, edota hondar itsaskorrik uzten ez duen hesgailu bat? ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amerikar armadak (3); **amerikar asko** (3); **amerikar bat** (14); **amerikar batean** (3); **amerikar batek** (7); **amerikar batekin** (5); **amerikar baten** (5); **amerikar edo** (4); **amerikar erako** (4); **amerikar estadu** (9); **amerikar estadu batuek** (3); **amerikar estatu** (3); **amerikar eta** (13); **amerikar familia** (4); **amerikar handi** (3); **amerikar herria** (4); **amerikar hiritarren** (3); **amerikar indiarren** (3); **amerikar polizia** (3); **amerikarra da** (7); **amerikarra da** (7); **amerikarra dela** (3); **amerikarra dela** (3); **amerikarra ere** (4); **amerikarra ere** (4); **amerikarra eta** (12); **amerikarra eta** (12); **amerikarra izan** (3); **amerikarra izan** (3); **amerikarra zen** (5); **amerikarra zen** (5); **amerikarrek beren** (5); **amerikarrek ez** (4); **amets amerikarra** (4); **amets amerikarra** (4); **amets amerikarraren** (3); **anglo amerikar** (3); **artista amerikar** (3); **baina amerikar** (4); **barra amerikar** (3); **beste amerikar** (3); **bisoi amerikarra** (3); **bisoi amerikarra** (3); **bush amerikarra** (3); **bush amerikarra** (3); **da amerikar** (3); **da amerikarrek** (3); **dira amerikar** (3); **diren amerikar** (4); **duen amerikar** (3); **enpresa amerikar** (3); **eta amerikar** (23); **eta amerikarra** (3); **eta amerikarra** (3); **eta amerikarrek** (3); **futbol amerikarra** (3); **futbol amerikarra** (3); **futbol amerikarreko** (3); **futbol amerikarreko** (3); **ipar amerikar** (3); **ipar amerikarrek** (5); **kazetari amerikarra** (3); **kazetari amerikarra** (3); **latino amerikar** (3); **rock amerikarraren** (3); **soldado amerikar** (3); **ziren amerikar** (7); **zituen amerikar** (4); **zuten amerikarrek** (3)

---

amerikartasun *iz* amerikarra denaren nolakotasuna.

Ez du bere **amerikartasuna** ezkutatu nahi. Berria - Kultura

Berresten du haren **amerikartasun** betea. Edorta Jimenez

---

amerikartu, amerikar(tu), amerikartzen **1** du ad amerikar bihurtu.

Lau horietan baziren bi polizia amerikarrak, poloniar bat **amerikartua** eta Irakiar kurdo bat Ameriketan bizi zena azken hamar urteetan, itzultzaile gisa hartua baitzuten. Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Ehiztaria filma ikusita daukanak gogoan izan behar ditu De Niro eta bestea, lituaniar **amerikartuen** erroletan. Edorta Jimenez

---

amerikazale *izond* Amerikaren zalea dena.

Eta karua, oroitarazi zien amerikar batekin ezkondurik zen durangar **amerikazaleak**. Xabier Montoia

Amerikazale edo Amerikaren aurkako, *Salt of the Earth* zinemaren historiarako geratu da, klaseen arteko borrokaren testigantza emateko. Berria - Kultura

---

amerindiano ik **amerindio**.

---

amerindiar *izlag/izond/iz* Amerikako indiarra.

Amerindiar hizkuntza gehienek euskararen eite handia daukate, hara zergatik interes handiarekin hartu duten Xabier Kintanaren ekarpena. Herria

Hameka **amerindiar** naziotako ordezkariak ziren bilduak: andoa, kofan (650 hiztun), txatxi (10.000 hiztun), epera (30.000 hiztun), kitxua (3.050.000 hiztun), sapara (50 hiztun), xuar (80.000 hiztun), xiwiar (1000 hiztun), tagaeri (500 hiztun), tsatxila (2000 hiztun) eta waoraniak (2000 hiztun). Herria

Xabier Kintana euskaltzaina Ekuadorren gaindi ibili da, hango **amerindiar** hizkuntzetaz egin den mintegian parte hartzeko. Herria

Hameka **amerindiar** naziotako ordezkariak ziren bilduak. Herria

Museoa eta jaialdia urtetan antolatu dituzte eta **amerindiar** biren asmakizuna da. Berria - Mundua

Buda eta **amerindiarra** izango dira Adan eta Eva zaharrak. Berria - Kultura

Eztabaida horri bukaera ez zioten Aita Santuaren dekretu baten bidez eman, lege naturalaren bidez baizik: **amerindiarrak** gizakiak ziren, beren tradizioak, ohiturak eta ongiari eta gaizkiari buruzko ideiak beste herrienak bezalakoak zirelako. Askoren artean

Amerindiarrak, ahaztutako bizilagunak. Berria - Mundua

Izan, badira ere **amerindiarrak** islamisten artean. Berria - Mundua

Delawareak tribu **amerindiarra** dira, Hudson eta Baltimore arteko Atlantikoko kostaldean bizi zirenak. Julen Gabiria

Huron tribukoak ere **amerindiarrak** dira, eta Laku Handien inguruko lurrak okupatzen zituzten. Julen Gabiria

Zurien hizkuntzan **"amerindiarrak"**, "indianoak" edo "autoktonoak" garen hauek -eta ez du hain aspaldi, "salbaiak"- gara zinez hemengoak garenak. Aurelia Arkotxa

---

amerindio *(orobat **amerindiano**)* *izond/izlag/iz* amerindiarra.

Haren itzalean, jatorri ezin asmatuzko beste bizpahiru gizaki kulunkatu ziren: asiarrak izan zitezkeen, **amerindioak**, Europa hegoaldeko greko edo italiarrak. Itxaro Borda

Hartu-eman horien ondorio dira, nonbait, Kanadako frantsesean eta *micmac* hizkuntza **amerindioan** iraun duten euskal itxurako zenbait hitz. Koldo Zuazo

Ugartean atxeman arrastoetaz hornitua, esplikatzen dautzuete gure arbasoen abentura eder hori eta sumarazten ihizi egun bortitz baten ondotik zer gau goxoak pasa zituzketen euskaldun eta **amerindianoek**, ugarte xoragarri hortan, su baten inguruan, agian kantuz eta dantzan, eguzkia ibaiaren zabalean murgiltzen begiratzen. Haren itzalean, jatorri ezin asmatuzko beste bizpahiru gizaki kulunkatu ziren: asiarrak izan zitezkeen, **amerindioak**, Europa hegoaldeko greko edo italiarrak.Euskaldunak jin aitzin, 1587 aldean, **Amerindianoek** jadanik baliatzen zuten azken bi mila urteetan, ihizirako eta komertzio gune gisa. Herria

---

amerizio *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)* *iz* sintesi bidez lortzen den elementu kimiko erradioaktiboa, aktinidoen sailekoa *(Am*; at. z. 95).

Amerizioa elementu kimiko sintetiko bat da, Am ikurra eta 95 zenbaki atomikoa dituena. ETC-entziklopedia

Oso **amerizio** isotopo kutsagarria zuten tximistorratz horietako gehienek, eta 1.164 zeuden garai hartan Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. ETC-prentsa

ISISen txostenaren arabera, gero eta plutonio gehiago dago bilduta, eta beste arrisku bat sortu da: neptunio-237 eta **amerizioa**. ETC-prentsa

Erakunde militarraren ordezkari batek, munizioek eta tresneria militarrek neptunio, plutonio eta **amerizio** gai erradioaktiboen aztarnak izan ditzaketela dioen EEBBko Energia Saileko agiri bat irakurri zuen. ETC-prentsa

Baina leherketaren ondorengo egunetan irradiazio kopuru izugarriek -Hiroshimakoak baino askozaz handiagoek- kolpatu baldin bazituzten asko, beste milioika jende gehiagok jaio eta bizi beharko dute 90 estrontzioak eta 137 zesioak 300 urtez kutsatuko dituen lurrotan, plutonioak eta **amerizioak** milaka urtez pozoituta edukiko dituenetan. ETC-prentsa

Ionizazio-detektagailua: bi ganberatan oinarritzen da; bata itxia da, eta alfa erradiazioak igortzen ditu iturri erradioaktibo batetik (**amerizioa**, eskuarki); bestea, aldiz, arriskua dagoen girorantz irekita dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontinenteak ere baliatu dira eskualdeak izendatzeko: europioarentzat, Europaren izena hartu da maileguz; **amerizioarentzat**, berriz, Amerikarena (iparraldea gogoan, ustez). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amerri *iz* aberria.

Euskara, herria, aberria -edo **amerria**, Jean Louis Davant-ek zion bezala- dira goraipatu Itsasuko orroi-harriaren aintzinean. Herria

"Herriminez" deitu du hirugarren atala, ama-lurra edo **"Amerria"** daukala idazleak bihotzean: "Zuberoa dut ama, Euskal Herria aldiz emaztea, maite dudan emaztea" dauku erran olerkariak. Herria

Amerri *bakarra* irakurri zuen. Berria - Kultura

---

amesbera *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) izond* ameslaria.

Belaunaldi askotako inozo **amesberak** etxean sentitu ziren hemen. ETC-literatura, saiakera

Baina, hantxe ere, gogoeta handi korapilatsuak aztiatzen ziren buruan; potogilea eta nekazaria, goiz-goiz jaikiak haiek ere, apurtxo batean geratu ziren hesi sarreraren ondoan, **amesbera**... ETC-literatura, saiakera

Esna biziki **amesbera**, Metxak lotan ez du egingo amets bi baino. ETC-literatura, saiakera

Bi lan hauetan gurasoek haurrengan duten eragina azaleratzen da: ama erretxin bati seme ikarati eta koitadua eratortzen zaio, eta etsia hartuta dagoen aita onkoteari, alaba jolasti eta **amesbera**. ETC-prentsa

---

amesgaitz *iz* amesgaiztoa.

Gauaz, ene amets edo **amesgaitzen** historien eremuak zakurrez beteak izanen direteke. Piarres Aintziart

---

amesgaixto ik **amesgaizto**.

---

amesgaizto *(orobat **amesgaixto** g.er. eta **ameskaizto** g.er.)* **1** *iz* amets txarra, larritasuna edo beldurra eragiten duen ametsa. ik **ameskaitz**.

Anita Vagmudere-ren ametsak **amesgaizto** bihurtu ziren ezkondu zenean. Gotzon Garate

Bizi duen istant hori ez dela **amesgaiztoa**, **amesgaizto** itxurako errealitatea baizik. Imanol Zurutuza

Amets bat, **amesgaiztoa** izatera iristen ez zena. Jon Alonso

Gau batez, ohean nengoela, amets bat egin nuen, zeharo izutu ninduena, eta erabat beldurtu ninduten **amesgaizto** eta ikuskariak izan nituen. Elizen arteko biblia

Oraindik **amesgaiztoak** ditut batzuetan. Iñaki Mendiguren

Neuk ere, Iruñean bizi nintzelarik, **amesgaiztoak** izaten nituen noizbehinka. Alberto Ladron Arana

Maiz esnatzen da **amesgaiztoek** ikaraturik. Patxi Zubizarreta

Hau ez da gertatzen ari, esaten zion bere buruari gizonek etzatera behartzen zuten bitartean; amets bat baino ez da, **amesgaizto** bat. Oskar Arana

Gertatzen ari zitzaidan guztiak **amesgaizto** bat behar zuen izan, inondik ere, behin atzarriz geroz begi-kliska batean aienatu behar zuena. Aingeru Epaltza

Ametsetan ari zela iruditu zitzaion hasieran, **amesgaiztoren** bat zuela. Imanol Zurutuza

Une horretan hain zuzen, zurrunga luze baten ondoren, begiak zabaldu zituen espantuz, **amesgaiztoren** batek izututa, antza. Ramon Saizarbitoria

Alessandro de Novara jauregirat heldu zen egun berean, **amesgaizto** bat izan nuen gauez, eta **amesgaizto** hark iratzarri ninduen. Joan Mari Irigoien

Ezinezkoa da **amesgaizto** batek uzten dizkigun gogo-abaildura zein irudien jatorria elementu oniriko soilekin adieraztea. Anjel Lertxundi

Konpainia-burua arnaska arituko da, **amesgaizto** batetik irtena balitz bezala. Josu Zabaleta

Apur bat sosegatu nintzen arren, gau hartan ez nuen ongi lo egin, **amesgaiztoz amesgaizto**, infernuko garretarat kondenaturikako zortzi urteko mutil hura gogoan. Joan Mari Irigoien

Artean **amesgaiztoan** banintz bezala, urrats batzuk entzun nituen korrika batean hurbiltzen. Alberto Ladron Arana

Ez nekien entzundako garrasiak nireak ote ziren ala nire **amesgaiztoetako** erresuma ilun hartako mamuren batenak. Alberto Ladron Arana

Nire ametsen zerrendan ez zen inoiz azaltzen ama izatearena - **amesgaiztoetan** izan ezik. Arantxa Iturbe

Agureak begiak ireki eta kliskatu egin zituen, **amesgaizto** bat uxatu nahi izango balu bezala. Ibon Uribarri

Oraindik **amesgaiztoak** ditut batzuetan. Iñaki Mendiguren

Guztiz esnatu zen, **amesgaiztoak** ikaraturik. Ibon Uribarri

Gau hartan, bere **amesgaiztoak** izutu zuen berriz, bihotza aztoratzen zioten beste larritasun sorrek areagoturik. Karlos Zabala

Horixe zuen ona alkoholak, hausnartu zuen Del Vallek, **amesgaiztoak** uxatzeko ahalmen ia magikoa. Alberto Ladron Arana

Amesgaiztoko hondoratze hartatik libratua zen Ruche jauna. Jon Muñoz

Orain, pobretua ez ezik, arrotz, koherentziagabe eta ia **amesgaiztoko** iruditzen zitzaion bere mundua. Xabier Olarra

Arazo deitzea nahiago dudan gauza hura, batek daki nongo leize barrenetatik azaleratutako izaki **amesgaiztozko** hura. Oskar Arana

Poliki-poliki beldurra ari zitzaion jabetzen, ordu arte inoiz sentitu ez bezalako beldur berezi bat, ilunpearen beldurra, baso mortuaren beldurra, eta mendeku hartzeko anaia hil berri zion otso **amesgaiztozkoaren** beldurra. Josu Zabaleta

Iluntasuna erabatekoa zen Pataki, izerdi patsetan, jauzi batez **amesgaiztotik** esnatu zenean. Harkaitz Cano

Dilindan, han, nonbait, **amesgaixtoen** eremu madarikatuan! Daniel Landart

Garai haietako **ameskaiztoetan**, alabak bera bezalako soldadu zakar baten besoetan higatzen zuen bizia. Aingeru Epaltza

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Irabazteko gogoaz gain, Harry konturatu zen **amesgaizto** gutxiago zeuzkala entrenatu ondoren nekatuta zegoenean. Iñaki Mendiguren

Amesgaizto hutsa da, benetan. Iñaki Mendiguren

Kontua da Harry bere **amesgaizto** zaharrak esnatzen zuela oraindik ere. Iñaki Mendiguren

Gau hartan **amesgaizto** izugarriek asaldatu zidaten loa. Alberto Ladron Arana

Sandro mendian ikusteak munduarekin adiskidetzen zintuen, eta burutik kentzen zizun Europa azpian harturik zeukan **amesgaizto** larria. Juan Garzia

Sekula, sekula santan, nire **amesgaiztorik** gupidagabeenean ere ez nukeen irudikatuko honelako leku bat. Xabier Paya

Ez zegoen haiek lotzen zituen haririk, baina **amesgaizto** erotiko desatseginak ziren. Ibon Uribarri

Eta orain, **amesgaizto** sukartsu batean bezala, SSetako goi ofizial bihurtuta agertzen zitzaidan. Alberto Ladron Arana

Gaueko **amesgaizto** lizun haietan. Joan Mari Irigoien

Iraganeko **amesgaizto** eta beldurren gatibu zegoela sumatzen nuen, eta emakume gajo hori askatu beharra nuela. Xabier Mendiguren Elizegi

Izu-ikarazko espiral batean jausi naiz, **amesgaizto** paranoikoan. Patxi Iturritegi

Bere **amesgaiztorik** gaiztoenean ere irudika ezin zezakeen zerbait: hiru maleta beltz zeuden bere aurrean. Harkaitz Cano

3 (hitz elkartuetan)

Poeren kontakizunetatik aterea zirudien izugarrikeria hark sukar-**amesgaizto** baten sentipena sortzen zuen, errealitateaz kanpoko mundu ilun batena. Alberto Ladron Arana

4 irud/hed

Atxilo hartutakoen artean, Román Eguiazabal zegoen; apaiz gaiztoa eta españar gaiztoagoa, euskal nazionalismoaren heriozko doktrinen zabaltzaile setatsua, eta egiazko aberriaren kontrako ideien eta Euzcadi izeneko **amesgaizto** horren ereile ezaguna. Inazio Mujika Iraola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amesgaizto bat (35); **amesgaizto bat besterik** (3); **amesgaizto bat izan** (12); **amesgaizto batean** (7); **amesgaizto batean bezala** (4); **amesgaizto batek** (3); **amesgaizto baten** (7); **amesgaizto batetik** (6); **amesgaizto bihurtu** (9); **amesgaizto eta** (3); **amesgaizto hark** (4); **amesgaizto hau** (5); **amesgaiztoa atzean** (3); **amesgaiztoa da** (9); **amesgaiztoa dela** (3); **amesgaiztoa izan** (15); **amesgaiztoa izan da** (3); **amesgaiztoa izango** (3); **amesgaiztoak izaten** (9); **amesgaiztoak izaten zituen** (3); **amesgaiztotik esnatu** (3); **ametsa amesgaizto** (4); **bere amesgaizto** (3); **bere amesgaiztorik** (4); **da amesgaiztoa** (3); **duen amesgaiztoa** (3); **eta amesgaizto** (8); **eta amesgaiztoa** (4); **eta amesgaiztoak** (3); **eta amesgaiztoaren** (3)

---

amesgarri *izond* amets egitea eragiten duena, ametsezkoa.

Herri **amesgarri** urrunetan. Juan Garzia

Emeki emeki, azpiz edo gordeka, joan dira Juduak lur **amesgarri** hartara eta han, lanean ariz, lortu dute azkenean ONU-k sort dezan aberri berria haientzat Israel-go erresuma. Herria

Lurralde miresgarririk, **amesgarririk** ikusi nahi baduzu, ordea, zoaz Indiara. Gotzon Garate

Hamaika urteko mutiko batentzat, osogai **amesgarri** guztiak ekarzan gaba. Xabier Amuriza

---

amesgela *iz* amets egiteko gela.

'Ez da nire logela,' esan zidan, 'lo bestean egiten dudalako, baina egunez hemen egoten naiz eta nire **amesgela** da'. Joseba Sarrionandia

---

amesgile *izond/iz* amets egiten duena.

Gainera, ilusio hori ez da **amesgilea**, benetakoa baizik. Berria - Euskal Herria

Ez zen oso beldurgarria, baina bai nahasia, ulergaitza eta bitxi samarra: **amesgilea** bazter batean zegoen, eta haren espektro gorpuzgabea soilik mugitzen zen, hitzik gabe hitz egiten zuen, sufrimendurik gabe sufritzen zuen. Jose Morales

---

ameska *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *adlag* ametsetan, amets egiten.

Ba ote daki Jexux Mari Arrietak zenbateraino kateatu ninduen atalka-atalka, **ameska-ameska** bizitzera; fikzioaren kolore guztietako armiarma sarean sentitzen nintzen/naiz ni orduz gero babestuen. ETC-literatura, saiakera

---

ameskaitz *iz* amesgaiztoa.

Ameskaitz bat da, iratzartze zoragarri bat dukeena; eta, oro har, esker ona zor didala iruditzen zait: guztiarekin ere, maltzur samar jokatu badut, libertitu beharrez izan da: [...]. Jon Muñoz

---

ameskaizto ik **amesgaizto**.

---

ameskeria **1** *iz* egiazkotzat hartzen den irudipen alegiazkoa, gaitzesgarritzat markatua.

Hizkuntzalaritzaren arloa da, hain zuzen, ustekeriak, **ameskeriak** eta iduripenak gehien zabaldu diren arloa. Isabel Arrigain

Ameskeria besterik ez zen, segur aski, baina hari eutsi zion gogor. Karlos Zabala

Washingtonen proposamena **"ameskeria"** dela esan zuen: "Tentelak dira uste badute Libiarekin erabilitako jokabidea onartuko dugula". Berria - Mundua

Atseginkeriez betea den **ameskeria** hori amaitzen denean. Koro Navarro

Ez hanka ez bururik ez zuten **ameskeria** haiek. Harkaitz Cano

Trantzea nahiz **ameskeria** hurbil dituen gogo-egoera. Xabier Olarra

Gramatika orokorraren esparru arkeologikoak Fabre d'Oliveten **ameskeriak** biltzen ditu (sekula jaso ez dutenak estatus zientifikoa eta gehiago sartzen direnak pentsaera mistikoaren erregistroan). Xabier Arregi

Funtsik gabeko **ameskeriak** ziren, Floraren ama ez baitzen edozeinekin -are gutxiago Udalak bere hezurdura oparitzen dizun norbaitekin- hitz egitekoa. Ramon Saizarbitoria

HILEZKORTASUNAREN **AMESKERIA**. Iñaki Mendiguren

Ezagutza hau ez litzateke ezer izango, **ameskeria** batez jardutea besterik ez, baldin eta espazioa kanpoko esperientziaren ekaia osatzen duten agerpenen baldintzatzat hartuko ez balitz. Ibon Uribarri

Eldarniotsuegia den irudimena beti zorionaren bila ibiliko da, inon aurkitu gabe, eta azkenean **ameskeriek** hartuko dute errealitatearen lekua. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bakardadeak biziagotu egiten zuen bere **ameskerien** sua. Patxi Zubizarreta

Euskal herriaren jatorriari buruzko **ameskerien** kritika. Joxe Azurmendi

Gurutzea irudikatzen zuen tunika bat prestatu zuen beretzat, haren bidez deabruaren **ameskeria** guztiak uxatzeko. Askoren artean

Ezereza ez zen gau luzetik bat-batean maitagarrien lurraldean esnatu nintzelarik, irudimenezko jauregi batean, monasterioetako pentsamendu eta erudizioaren eremu zabalean, ez da harritzekoa txundituta eta gogo biziz begiratzea neure ingurura, haurtzaroa liburuetan alferrik galdu eta gaztetasuna **ameskerietan** xahutu izana. Koro Navarro

Sukarrak sortzen zizkion **ameskerietan** burua galduta. J.M. Olaizola "Txiliku"

Del Valle gizon praktikoa zen, eta, erlijioaren **ameskerietan** sinesten ez zuen era berean, nazionalismoen dogmek hotz uzten zuten. Alberto Ladron Arana

Bisionarioaren **ameskeriekin** batera begi zorrotza ere beti izan du Oteizak. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina, ahots bat, egiazko ahots bat, eta ez **ameskerietakoa**, ari zitzaidan agurtzen nekazarien hitz egiteko moduaz. Josu Zabaleta

Baionetekin aritzea bera, **ameskeriazko** jolasa zen artean. Mirentxu Larrañaga

Behin etxean, apaintze-mahaiko tiraderan sartu zituen bi flaskotxoak eta haiei begira egon zen samurtasun **ameskeriazkoan** murgilduta. Mirentxu Larrañaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Asmo xarmangarri horiek zergatik behar dute izan nire irudimenaren **ameskeria** hutsa, eta errealitateak zergatik ez dit eskaintzen aitzitik dolorezko gabezia lausorik baizik? Jon Muñoz

Gizon handi haren ideiak ez ziren beti **ameskeria** hutsak izaten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hutsegite larritzat jotzen zuen, otoitz-denboran barrutik **ameskeria** hutsaletan sakabanatuta ibiltzea. Askoren artean

Madame L'Espanaye eta haren alabaren heriotzen tragedia argitu ondoren, Dupin jaunak berehala galdu zuen gertaera hari buruzko interesa, eta segituan itzuli zen bere **ameskeria** tristeen usadio zaharretara. Koro Navarro

Florentek, zerumuga haren eitea aldatu ahala, **ameskeria** xamurretan edo ankerretan abandonatzen zuen bere burua; elurrak lasaitzen zuen. Karlos Zabala

Bizirik dagoela iruditzen zaidan bihotzeko min hau ez balitz, **ameskeria** lausoetan murgilduko nintzateke, tirano zahartu bat bezala. Josu Zabaleta

Haren nerbioetako ondoeza Cayenneko **ameskeria** luzeen esnaera besterik ez zen. Karlos Zabala

Kimera eta **ameskeria** liberalaren garaia. Iñaki Heras

Denverrek galdetuz gero, Sethek erantzun laburrak ematen zizkion, edo erdizkako **ameskeria** lausoak. Anton Garikano

Globalizazioak, trukearen eragozpen oro ezabaturik, eskaintzaren eta eskariaren lege bakarren mende, mundu mailako merkatu bateratu baten **ameskeria** liberala hobeto piztu nahi du, hots, Sismondik esan bezala, "unibertso osoko merkatu" baten mamua berpiztu nahi du. Koro Navarro

"Euskal Herriaren eta Espainiaren interesak defendatuko ditut Europan", esan zuen, "bereziki nazionalista batzuen **ameskeria** independentisten aurka". Berria - Euskal Herria

Ameskeria polizialek eta antzeko beste asmakizunek ezin izango dute, jada, herri honek duen askatasun eta bakerako bidea desbideratu. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan)

Egia hauek kristau **ameskerietan** oinarritzen badituzue, lehen hain zentzun gutxiz egiten zenuten bezala, zuen ikasleek, eraikuntzaren oinarri ahulez ohartu bezain laster, bota egingo dute etxea, eta gaiztotu egingo dira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Horretaz gain, sexu **ameskeriak** kopla barik deskribatzen ditu. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ameskeria da (3)

---

ameskizun *iz* nahiz lortzen oso zaila den, biziki desiratzen den nahia edo xedea.

Bere **ameskizun** eta asmakizunak oro lurrunduz eta airean ezabatuz zihoazen, tximeleten lorratzen antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

Aurreko kapituluan argi ikusi da zer zeukan Txitxikovek bere nahi eta gurarien jomuga nagusi, eta, espero izatekoa zenez, buru eta bihotz lotu zitzaion berehala bere **ameskizunari**. Jose Morales

Orduan, gogoratu nintzen Borgesen ametsaz eta platera lurrera bota eta aurka egin nien zaintzaileei, ozenki, hura ametsa zela, haiek ez zirela nire buruaren **ameskizunak** baizik, eta esnatutakoan barre egingo genuela majo andreak eta biok haien lepotik. Javi Cillero

---

ameskoar *iz* Nafarroako Ameskoetako biztanlea.

Bi amikuztar izan ezik, denak bortuz haraindikoak ziren, Migelekin batean gerlan ibiliak: bi erronkariar, baztandar bat, **ameskoar** bat eta Erriberri aldeko bertze bat. Aingeru Epaltza

---

ameskor *izond* amesteko joera duena.

Ameskor agian? Xabier Mendiguren Elizegi

---

ameslari **1** *iz* amets egiten duena; ametsetan bezala egoten dena.

Gure herrietako laborarientzat hitz honek, ene ustez, **ameslari** eta ez pentsalari baten ariketa erakusten zuen. Piarres Aintziart

Zorionez, badaude **ameslari** batzuk, oraindik poesiaren eta literaturaren funtzio etikoan itsu sinisten dutenak. Ana Urkiza

Eta nik sinetsi egin nion, neure osaba ameslariarekin **ameslari**. Ramon Saizarbitoria

2 (izenondoekin)

Izan ere, *American Dreamer* -**Ameslari** amerikarra- da haren biografiaren titulua. Edorta Jimenez

Azkenean, nihaur ere, Loretxu, ez naiza Heinrich horren iduriko **ameslari** ahul bat? Janbattitt Dirassar

Zelulakideen idurikoz gu burgeskume alienatu batzuk izanik, eta haiek, berriz, **ameslari** irrigarri andana gure irizpidean, ezustean harrapatu ninduen Kristinaren deiak. Aingeru Epaltza

Ametsetan berriro, Jimmy, nire **ameslari** txiki hori? Lopez de Arana

Lehenik, entzunik gaude Chahok asmatu zuela Aitor, euskaldunen arbaso mitikoa, eta **ameslari** zoro hura izan zela euskal nazionalismoak egin edo eginen dituen izigarrikeria guztien aita. Piarres Xarriton

Ameslari txoro bat duk mutil hori -esan zion ezerazari. Koro Navarro

Eta **ameslari** hutsa zen, adinak, ohi ez bezala, are ameslariago egin zuena. Joan Mari Irigoien

Baina etsita zegoen **ameslari** urardotua baizik ez zela; nahi eta ezinaren irudi bakartia. Fernando Morillo

3 (izenondo gisa)

Gaurko On Kixote **ameslari** eta utopikoaren adibide gisa, horra hor protagonistak dioskuna emanaldiaren une batean bere filosofia laburbiltzeko: [...]. Berria - Kultura

Orain ohartzen naiz etxeak eta lorategiak mantentzen gintuztela, hau da, gure aita **ameslari** gizajoak utzitako apurrak. Ander Irizar

Oroitzapen inozoa da inondik ere, haur **ameslari** baten irudikapen txoroa. Xabier Mendiguren Elizegi

Hobeto pentsatzen jarrita, iruditzen zait nerabe **ameslari** hori ez ote dagoen oraindik nigan, bere idealismo eta injenuotasun guztiarekin, helburua aldatuta baina. Erromes **ameslari** batek, beroa oraino tzar dagoela, garagardo fresko bati ekinen dio. Xabier Mendiguren Elizegi

Plazaz bestaldeko hondakinei zerizkien hauts zirimolei begirada **ameslari** batez erreparatzen zien. Alberto Ladron Arana

Begitartea irribarre **ameslari** batez dirdaitu zitzaion. Patxi Zubizarreta

Bazuen, bere birjina itxura **ameslari** haren azpian, halako egoskorkeria mutu bat, bere buruaren jabe izateko gogo bat. Karlos Zabala

Keinu **ameslari** batez, eskua luzatu eta armaren heldulekuaren azal lakarra laztandu nuen, lilura bitxi batek hartuta. Alberto Ladron Arana

Karlos Zabalak euskarturiko eleberri eskandaluzko hau gozatzeko parada ezinago egokiak izango dira udako arratsalde edo gau **ameslari** bezain eldarnio amaiezinekoak. Berria - Kultura

Orduko hartan ondo ikusten nuela, hortaz ezin nuen eta ez nuen dudarik egin; zeren ematen baitzuen oihala jo zuen lehen izpiak desagerrarazi zidala zentzumen guztietara zabaldua nuen lozorro **ameslari** hura, eta berehalakoan esnatu ninduela. Koro Navarro

4 (adizlagun gisa)

-Hala duk, Milo?s -esan zuen, **ameslari**, geltokiko buruak-. Fernando Rey

Labur esanik, antzokitik etxerantz **ameslari** doan hogei urteko edozein mutilgazte bat-batean gorriarazten duten hitz horietakoak. Jose Morales

Santxok (oraingo honetan **ameslari**), kondesa egin nahi du bere alaba, itsu-itsuan sinesten baitu bera uharte bateko gobernari izatera iritsiko dela. Patxi Ezkiaga

Denek izan zuten herri ezkutu baten berri, eta denak hunkitu ziren berriemailea **ameslari** eta triste azaldu zitzaienean, nire kidearen moduan: triste elkarrizketaren hasieran, gerra galduaz zein herri zapalduaz ari zela; **ameslari** ondorenean, ideala aipatzean, Euzkadiren askatasuna. Bernardo Atxaga

-Bai -erran zuen amak, **ameslari** -. Joan Mari Irigoien

Egia esan -esan du **ameslari** -, neure buruari galdetzen diot ez ote zaren zu gehien gorrotatu dudana. Berria - Kultura

Gaur, lotsarik gabe berresten ditugu atzoko konpromisoak; gazteak gara, harro gaude eta garaipena lortu arte berdin jarraituko dugu: alai, **ameslari** eta borrokalari. Berria - Euskal Herria

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Begi haiek **ameslari** itxura ematen zioten, iheslari itxura, eta une hartan emanago zen musika doinuetara, adiskidearen hitzetara baino. Felipe Juaristi

Txairotasun handia erakusten zuen mugimendu guztietan, eta atsegin zituen poemak, eta bazekien burua nola jarri **ameslari** -itxura emateko. Jose Morales

Kattina ene **ameslari** plantaz ohartu zen eta belarrira murmuratu zidan: [...]. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ameslari bat** (4); **ameslari batez** (4); **ameslari eta** (7); **ameslaria zen** (4); **eta ameslari** (7); **eta ameslaria** (6); **ia ameslari** (3)

---

amesle *iz* ameslaria.

Onerako, ederrerako eta egiarako zeharo zabal eta maiteminduta, goi ekintzen **amesle**. Jenaro Garate

Hordia, zentzurik gabeko agindu bat inprobisatzen duelarik; **ameslea**, bat-batean esnatu eta beraren ondoan lo datzan emakumea bere eskuz itotzen duelarik; ez dira, menturaz, Konpainiaren erabaki sekretu bat gauzatzen ari? Juan Garzia

---

amespide *iz* ametsaren bidea.

Arrazoiaren **amespideak** munstroak sortzen ditu noski, baina jolas kontsolagarriak dira horiek munduaren itzulezintasunaren aldean. Juan Garzia

---

amestezin *izond* ezin amestuzkoa.

Parkerrek Tauren kontra **amestezinak** diren saskiraketak egin zituen, eskarmentu gehien duen jokalaria bera partidatik ateratzeko modukoak. Berria - Kirola

Are **amestezinagoa**, nire eskutik ateratako testu bat haren ezpainetan entzutea. Aingeru Epaltza

---

amesti **1** *izond/iz* ameslaria, amesgilea.

Gizaki **amesti** baten jarrera elegiakoan. Koldo Izagirre

Denok dakigu gainera zein den *Don Quijote*ren ezaugarri nagusia: **amesti** interesik gabearena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Nicolas Poussin (1594-1665), pintore frantsesa, paisaia lirismo **amestiz** interpretatu zuena. Koldo Izagirre

Amestiak gauaren larba ezezagun eta posibleak ikusi uste ditu bidearen ertzean paraturik lerro mehatxagarri eta elbarritan, pasatzerakoan makurtzen zaizkiola. Koldo Izagirre

2 (adizlagun gisa)

Iragaten diren nekazariak **amesti** doaz; ez dago herririk; harrizko etxeak han-hemenka hiruzpalau leihotxorekin, eta hauek ere sobera handiak nonbait, erdia estali baitiete. Koldo Izagirre

Leihotik begira ere horrela egon daitezke luzaz, begirada urrunean galduta, **amesti**. Joxean Agirre

---

amestoki *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* ametsezko tokia.

Las Vegaseko suizidio kopuruak ez du parekorik beste edozein hiritan; Hsiehen Downtown **amestokian**, Las Vegaseko suizidioak laukoiztu egin ziren. ETC-literatura, saiakera

Hala ere, "Arantzazun badugu / jada arbola bat / bakearen arbola / deitzen dioguna"; Arantzazu, oraindik ere, bake **amestoki** da. ETC-prentsa

Ortziaren muga besterik onartzen ez duen **amestoki** ederra pozoitu gura izan dute. ETC-prentsa

Greziako jubilatu suizidek, Portugaleko antzokietan Grandola Vila Morena-ri ekiten dioten gangarrek, edonon esklabo bihurtutako langileek independentziaren **amestoki** hori berori salatzen baitute, ilusioa iruntzietara. ETC-prentsa

Une batean **amestokitik** atera ninduen ni bezalako turista ikasi baten iruzkinak: The Da Vinci Code-ko eszena baten kokalekua ezagutua zuen. ETC-prentsa

Las Vegaseko suizidio kopuruak ez du parekorik, beste edozein hirirena bikoizten du: Hsiehren Downtown **amestokian**, Las Vegaseko suizidioak laukoiztu egin ziren. ETC-prentsa

---

amestu *(orobat **amenstu** g.er.)*, ames, amesten **1** du *ad* lotan amets egin; egiazkotzat hartzen diren zerak imajinatu.

Izan nuen eskubaloiko profesionala izatea **amesten** nuen garai bat ere. Anjel Lertxundi

Aurkitu du hainbat urtetan **amesten** zuen harri filosofikoa, edozein zirtzil urre bihurtzeko formula. Anjel Lertxundi

Mundu hobe bat **amestu**, eta ametsa gauzatzen ahalegindu, ahalegintzen eta ahaleginduko diren guztientzat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Agian Chung-tu Simla-rekin pareka genezake, zeren eta, Kublaik bere estepa **amesten** bazuen, britainiar erregeordeek klima gozoa **amesten** baitzuten. Iñaki Mendiguren

Haur-haurretik **amesten** zuen jostun izatea. Daniel Landart

Nik **amesten** nuen mundu miragarriaren atarian ote nengoen, bada? Joan Mari Irigoien

Berrogeita hamar urte behar izan zituen Euskaltzaindiak betitik **amesten** zuen helburu hartara iristeko. Pello Salaburu

Cienfuegosek **amesten** duen uharte librearen sinboloa izango da. Koldo Izagirre

Bainan **amesten** ahal dea zinez holako zerbait, bozak laster egin edo berantxago egin? Herria

Maine-ko herrixka txiro batean, aurreneko aldiz, fortuna menturatsu bat **amestu** zuen, itsas oholen lanketaren irudiz. Juan Garzia

Baserri hartan **amestu** zituen lehenengo abenturak eta urratu zituen lehenengo galtzak. Koro Navarro

Huraxe bai berak **amestu** zuen aberastasuna, betidanik desiratu izan zuen handitasuna. Patxi Zubizarreta

Kanpoko itxurak dezepzionatu egin ninduen, hesiak eta sarrerak ez zuten nik hainbestetan **amestu** nuen bikaintasunik. Anjel Lertxundi

Behin baino gehiagotan **amestu** zuen, azpilekin eta oreekin batera, Jada labe barnera jaurtitzea. Patxi Zubizarreta

-Rosa hilda dagoela **amestu** dut. Unai Elorriaga

Behialako garai batean nire erosteko ahalmena zuhurki administratzen zekien erosle irizpideduna nintzela **amestu** banuen ere, orain dena zen diferente. Jon Alonso

Adinetara helduak garenok erranen dugu halere, XX. mendean Euskal Herria ez dela lo egon eta sekula **amestuko** ez genituen lanabesak eskuratu ditugula gure hizkuntzaren, kulturaren eta herriaren lantzeko. Piarres Xarriton

Pentsamendu horrekin berriro ere lokartu naiz, eta Luisen antzera ihes egitea **amestu** dut. Patxi Zubizarreta

Hasi eta beste korrespontsalek **amestu** ere izan ez duten idazkari-taxuko morroi horrekin, Sidney Franklinekin. Edorta Jimenez

Nik nahiago dut **amestu** ispiluen azal dirdaitsuok infinitua irudikatu eta agintzen dutela. Juan Garzia

Ezin da **amestu** berea baino bizitza hoberik, baina halakoa izan al zuen? Monika Etxebarria

Gazteena izan zen gehien arriskatu zuena, eta ausardia horren saria pilotari batek **ames** dezakeen saririk handiena izan zen. Berria - Kirola

-Denoi ez zaizkiguk gauzak **amestu** bezala gertatzen. Aingeru Epaltza

Amestu bezain leuna zen haren paparra. Aingeru Epaltza

Desenkusatzen saiatzen zenean kontzientzia txarrak gogoratzen zion harekin lortu zuen **amestu** ezineko irabazi eskerga. Bego Montorio

Askotan zeneukan **amestua** goierritarrarekiko eskapada erotiko bat. Lourdes Oñederra

Parametro horien artean dago noski norbaiten seme edo alaba izatea, norbaiten biloba, non edo non izatea sustrai edo jatorri bat, dela egiazkoa dela **amestua**. Xabier Mendiguren Elizegi

Zenbat aldiz **amestu** eta asmatu dut egun batez oinez eginen nuela Santiagoko bidea? Piarres Aintziart

Hark aldiz, hainbeste urtez **amestu** amaren deskubritzeko eginahalak egiten zituen. Elena Touyarou

Mutikoa mirestua zegoen, holakorik ez baitzuen sekulan **amestu**, bere amets eroenetan ere. Michel Oronoz

Zenbat aldiz ez ote duen **amestu** itsas zabal hura zeharkatu eta mendean hartzea. Harkaitz Cano

Nik imajinatu baino lodixeagoak ziren, nik **amestu** baino motzagoak. Jasone Osoro

Hegan doala **amestuko** du orain ere. Juan Kruz Igerabide

Berak espero bezalaxe lan egiten zuen tinkatzeko makinak, eta haurtzarotik **amestutako** bake eta atsegin sentsazioa ematen zion. Xabier Olarra

Era arrunt baina sendoan esateko, **amestutako** eraikuntza intelektual bikaina gorantz zihoan aparraren arintasunaz. Bernardo Atxaga

Amestutakoa baino ere hobea zen. Iñaki Mendiguren

Euskadi erreala askok **amestutakoa** baino hobea dela esango nuke; hizkuntza berreskuratzeko egin den bidea, imajinaezina hasiera hartan. Bernardo Atxaga

Gauza gehiago zagok zeru-lurretan, Horazio, giza filosofiak **amesturikoak** baino. Juan Garzia

Gogotan erabili eta **amesturiko** matxinada garaile irten bezperan galdu zuen bizia Kilpatrick-ek. Juan Garzia

-Zer ari haiz **amesten**? Harkaitz Cano

Ez genuen **amesten** errepideak, ubideak, zubiak edo antzekoak eraikitzen. Aingeru Epaltza

Zeren eta **amesten** hasi bainintzen, aita Tomméren laudorioen ondotik, ezen Urbiaingo doktorea edo Urbiaingo jakintsua izan nintekeela. Joan Mari Irigoien

Mintzatzen garela **amesten** dugunean, uste izaten dugu. Piarres Xarriton

Horregatik, arrazoiak "ez baitio utziko labirintoaren plano bat **amesteari"**. Juan Garzia

Izpirituaren erabaki librez mintzatzen garela Alkuino, Karlomagnoren babesaz lagunduta, Frankoniako lurraldean Atenasen arimari dei egiteko gai izango zela **amestera** ausartu zen. Piarres Xarriton

2 (era burutua izenondo gisa)

Azkenean etorri zen bezero **amestua**, gugandik kontsulta bat nahi zuena. Juan Garzia

Ibaiaren ertz batean, politikan sentimenduen bidetik sartutako jendea, jo eta ke zebilena herri **amestua** eta idealizatua benetako herri bihurtu nahian. Bernardo Atxaga

Afera agudo moldatuko zela sinetsirik batzuk, arrunt etsiturik gehienak, ehuna dolar **amestuak** noiz bilduko esperoan guzti-guztiak. Xabier Montoia

Man-ekiko harremana, iragana salba eta orain ibiltaria baltsa-araz zezakeen geroaldi **amestuan** mintzo zutitzen zen, denboraren harilka mantsoan. Itxaro Borda

Dena zen, hala esaterik badut, zehar-**amestua**; unerik ilunenetan burura zetorkidan destainaz hartuko ninduzula, eskasegi, itsusiegi, setatsuegia izateagatik ez ninduzula onartuko. Eduardo Matauko

Inork ez zidan hango berri galdegin, eta han egotea sarraskian parte hartu gabe ezin **amestuzkoa** zen, itxuraz. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amesten ari (3); **amesten du** (7); **amesten dudan** (3); **amesten duela** (5); **amesten duen** (15); **amesten duena** (3); **amesten dugu** (11); **amesten dugun** (7); **amesten dugun herria** (3); **amesten dut** (7); **amesten dute** (7); **amesten duten** (5); **amesten dutenak** (3); **amesten duzu** (3); **amesten duzun** (5); **amesten duzun filma** (4); **amesten ere** (4); **amesten eta** (5); **amesten ez** (8); **amesten ez zuelarik** (4); **amesten hasi** (8); **amesten hasi zen** (3); **amesten nituen** (5); **amesten nuen** (17); **amesten zituen** (5); **amesten zuen** (37); **amesten zuena** (6); **amesten zuten** (9); **amestu baino** (3); **amestu bezain** (6); **amestu bezala** (6); **amestu dut** (6); **amestu ere** (16); **amestu ere egin** (5); **amestu ere ez** (3); **amestu ere ezin** (3); **amestu eta** (5); **amestu gabeko** (3); **amestu izan** (8); **amestu izan nuen** (3); **amestu nuen** (11); **amestu zituen** (5); **amestu zuen** (15); **amestu zuten** (3); **amestuko ez** (4); **baino gehiagotan amestu** (3); **bat amesten** (7); **bat amestu** (5); **berak amesten** (4); **berak amestu** (5); **beti amestu** (3); **edo amestu** (3); **egitearekin amesten** (3); **egitearekin amesten duzun** (3); **ere amesten** (4); **ere amestuko** (3); **eta amesten** (11); **eta amestu** (6); **ezta amestu** (3); **gehiagotan amestu** (3); **hiri amestuak** (5); **horrekin amesten** (3); **izatea amesten** (5); **nehork amesten** (3); **nehork amesten ez** (3); **nik amestu** (3); **sekula amestu** (4); **sekula amestuko** (3); **zela amesten** (4); **zenbatetan amestu** (3); **zuela amesten** (3); **zuk amesten** (3)

---

amestxo *iz adkor* amets xumea.

Zure gainean izarrak distiraka, badirudi gaueko haize finak "maite zaitut" dioela, txoriak sikomorondoan kantatzen ari dira, egin ezazu nitaz **amestxo** bat. Gotzon Garate

Laurogeita hemeretzi esan eta musu emaidazu, besarka nazazu estu eta nire beharra duzula esaidazu, ezin gehiago bakarrik eta goibel nagoenean, egin ezazu nitaz **amestxo** bat. Paperean hitzok zeuden, Wanda Fordek horren ederki ezagutzen zuen letrarekin idaztiak: "Nik ere zutaz **amestxo** bat egin dut". Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amestxo bat (5); **ezazu nitaz amestxo** (4); **nitaz amestxo bat** (4)

---

ametiezin *izond* ezin ametituzkoa, onartezina.

Suposizio hau egin zuen historia egipziakoan aditu ospetsu batek gutxienez, eta astronomiak aurkezturiko data kronologiko bat errefusatu zuen honetan oinarrituz: hura onartzeak harentzat beste proposizio **ametiezin** hau ere onartzea esan nahiko zukeelako, hots, gizarte-aldaketaren tempoak mundu egipziakoan dezente bizkorragoa izan behar zuela berrehun urteko denboraldi batean bere aurre-aurreko luzera bereko denboraldian izan zena baino. Iñaki Mendiguren

---

ametista *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi; orobat **amatista** ETCn **58** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ametista** agertzen da) iz* kuartzo kristaldu mota, gardena eta kolore morekoa, bitxigintzan erabilzen dena. ik**amatista**.

Ametista kuartzoaren aldaera gorrindol purpura bat da. Bere formula kimikoa SiO2 da. ETC-entziklopedia

Metalaren langintzan belarritakoak, lepokoak, bularretako bularretarako estalkiak eta abar egin zituzten, harribitxiz apainduak (turkesa, jadea, **ametista**, etab.). ETC-

entziklopedia

Oraindik ere ikusten dut nire irudia, Bruselako kale batean barrena neguko egun batez, belusezko soineko **ametista** -kolorea soinean, kasullaren batetik harturiko xingola zahar zilarrezko batzuek edertua. ETC-literatura, saiakera

Horman barreiatuta, eskulturak multzokatze ezberdinetan daude, tipologia zabalago baten barneko barietate ezberdinetan zehaztuta baleude bezala: hemen **ametistak** , han diamanteak, eta, bien artean, zafiroak. ETC-prentsa

Erlijio katolikoak ere harriak erabiltzen ditu: gotzainak **ametista** bat du, kardinalak errubi bat... ETC-prentsa

Harribitxi nagusien artean dago, **ametista** , zafiro, esmeralda eta diamantearekin batera. ETC-entziklopedia

Kakalardo kuttunak hainbat materialetan tailatzen ziren: esteatita, basaltoa, granitoa edo harribitxietan, lapis lazulia, **ametista** , kaltzedonia edo kornalina eta baita urrea bezalako metaletan ere. ETC-entziklopedia

---

ametitu, ameti(tu), ametitzen **1** du *ad* onartu.

Eta, eta, nola **ameti** dezakezu halako umilaziorik? Karlos Linazasoro

-Halaxe da - **ametitu** zuen berak-. Bernardo Atxaga

'Hori egia da, izan ere!' **ametituko** du Lapur Handiak. Joseba Sarrionandia

'Bai, arrazoia duzu,' **ametitu** du Imanolek eztabaidarik gabe, arrebaren errietari irribarre apalez erantzunik. Joseba Sarrionandia

Bai, **ametitzen** zuen dembora pasatu-presente-futuroen kontu hark posibilitate asko zituela, jolas literario politak egin zitezkeela, halako prospekzio fikziozkoak. Iñaki Iñurrieta

Inspektoreak nekatu arte jo zuen, bere printzipio segur aski katolikoek **ametitzen** zioten punturaino edo gehiago, baina ezin izan zuen makurrarazi. Bernardo Atxaga

Ezin diagu **ametitu** bandak pasodoble bat jotzea, edo erregearen martxa. Koldo Izagirre

Tenplukoek, harrigarria bada ere, **ametitu** zuten handik eramatea: ordurako, beharbada, berak ere pentsatzen hasiak ziren Greg gehiegi igoa zela gora bidean, eta kezkatzen hasiak ziren, nonbait, haren egoeraz. Xabier Olarra

Minbizia **ametitzen** ikasi dut, ez dakit tolerantzia den edo errendizioa den. Joseba Sarrionandia

Txantxarik ez zutela **ametitzen** erakusteko, indar-erakustaldi bat egin zuten, han nork agintzen zuen ahantz ez genezan. Karlos Linazasoro

Ubarroiek derrigorrez **ametitu** behar dute ematen zaien enplegu hori. Joseba Sarrionandia

Horixe esan bide du bala urdinduak, hilda zaude, heriotzaren erretorikak ez du esaldi luzerik **ametitzen** , apenas segundo batzuk ematen dizkizun argiari begiratzeko edo beldurrari deitzeko. Karlos Linazasoro

"Nekez **ametitu** daitekeen mehatxua da", adierazi zuen SDB sindikatuko lehenkariorde Ursula Engelan Keferrek. Berria - Ekonomia

Ondorioz, testu "ezinezkoak" idazten dira, hizkuntza batek sekula **ametituko** ez lituzkeenak. Iñaki Arranz

Soldadu gizonezkoak bakarrik **ametitzen** dituen alardea, Emakunderen esanetan, "baztertzailea" da. Berria - Euskal Herria

· Ezin zen **ametitu** -beraien mania transzendentalistengatik, edo beraien pedantekeriagatik- sortze prozesuari buruz esaten zuten hainbat faltsukeria. Bernardo Atxaga

2 (era burutua izenondo gisa)

Hiltzea kontu juridiko edo morala duk guretzat, edo medikuntzakoa, egintza **ametitu** edo debekatua, bai alde juridikotik bai moraletik sistema jakin baten barruko egintza mugatu bat. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ametitu nahi** (3); **ametitzen ditu** (3); **ametitzen ez** (3); **ametitzen zuen** (3); **bakarrik ametitzen** (3); **zen ametitu** (3)

---

ameto **1** *iz* onarpena.

Isilik gelditzen zaizkit gehienetan entzuleok istorioren bat edo oroitzapenen bat kontatzen amaitzen dudanean, menturaz gazte hauek ere lagun hilak jasoko dituzte gogoan, edo gure herriaren **ameto** guztiak madarikatzen jardunen dute. Koldo Izagirre

2 ***ameto egin*** onartu.

20 talde horiek ere Tourrak dioenari **ameto egingo** diote agian. Berria - Kirola

3 ***ameto eman*** onartu.

Zergatik ez honi **ameto eman** , honi askietsi, oniritzi eta amore eman? Anton Garikano

Izpi berdea -aditu nion orduan Carmeni, eta orduan bai, **ameto eman** nion uhartera joateko proposamenari. Iñaki Iñurrieta

Apirila on ikusi nahi duenak, ehun urtez behar duela bizi dioenari **ameto eman** behar ote diogu, bada? Pello Zabala

Beraz, iritsi zen **ameto emateko** eguna. Joxemari Iturralde

Edateko, txakolina hitzartu zuten aho batez, Luigiren gomendioari **ameto emanda** . Josu Landa

Ameto emana nuen. Pello Zabala

Euriak aurkezpen ekitaldiari **ameto eman** zion, baina zaleak ez zeuden Astiazaranen hitzak txalotzeko prest. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ameto eman** (7)

---

ametrailadora *(orobat **ametrailadore** g.er.) iz* metrailadorea.

Banekielako etxe zaharraren azpiko hartzuloan sei bidoi gasolina, laurogeita hamabost metraileta, berrehun eta hirurogeita hamabost eskubonba, bi munizio kaxa, zazpi **ametrailadora** eta hiru kintal dinamita zeudela ezkutaturik. Koldo Biguri

Bederatziak jo eta gero elkartu eta zuhur ibili ziren mahastietan eta anplifikadore bat egon balitz haien bihotz-taupadek tarrataka ari den **ametrailadora** bat ekarriko zuten gogora. Koldo Biguri

Orduantxe ikusi zen noizbait Pepponerena izandako **ametrailadora** ospetsua zeukala eskuineko besapean. Koldo Biguri

Behin abioi bat hasi zen **ametrailadorarekin** , eta gu, umeak, haritz baten ondora joan eta haretxen kontra egon ginen. Pako Aristi

Bonbardeotik ihesi mendira joan, han abioietako **ametrailadoreetatik** eskapoan arbolen bueltan arineketan ibili, eta hiria sutan zela kalera jaitsi zinetenean deitu zian hiri emakume batek bere gelako mesanotxea jaisteko laguntza eske, han paper eta balio handiko gauzak zeuzkala-eta. Pako Aristi

---

ametrailadore ik **ametrailadora**.

---

ametrailatu, ametraila(tu), ametrailatzen du *ad* ametrailadoraz tiro egin.

Abokatuak aurrera jarraitu nahi zuen salaketarekin, guardia haiek denak barrura sartu arte, baina Francisco berak esan zion ezetz, uzteko, nahiko broma izan zuela, aurrera jarraituz gero egunen batean etxea **ametrailatuko** ziotela, edo bazterren batean hilda utzi, edo karroan droga sartu eta gero salatu, edozer gauza. Pako Aristi

ametralladora ik **ametrailadora**.

---

amets *(ETCn **49.200** agerraldi; orobat **aments** g.er.)* **1** *iz* lotan, irudimenak sortzen dituen gertaerak edo irudiak, egiazkotzat hartzen direnak.

Amets eta amesgaiztoz urratua pasatu zuen gaua. Jon Muñoz

Akordatzen ote diren zer **amets** egiten zituzten. Arantxa Iturbe

Gau hartan bertan eta artean zu ezagutu gabe, lehen aldiz egin nuen zurekin **amets**. Eduardo Matauko

"Barkatu, **amets** bat izan dut", dio berak. Oskar Arana

Batzuetan, memoria-hutsarte bat edo **amets** bat eragiten du estimulazio elektrikoak. Irene Aldasoro

Beharbada **amets** ondoko iratzar-unean izaten den buru nahaste horregatik, 'diakroniko' eta 'sinkroniko' hitzak oihukatuz zutik jarri naiz, Biltzar guztia harri eta zur utziz." Markos Zapiain

Bart **amets** bat izan dut. Karlos Zabala

Amets batek eraginda egin ere. Jon Alonso

Nire pentsamenduen jauziek larrituta, esnatu egin nintzen, eta konturatu sentsazioaren jatorriaz, alegia **amets** bat izan zela dena, eta oso laburra gainera, zeren han jarraitzen baitzuen Jimmy Fontanaren ahotsak nire alboan. Bernardo Atxaga

2 irud/hed

-Amets batean beti - erantsi zuen sarjentuak. Felipe Juaristi

-Eta beharbada izan duzu **amets** bat, erresuma bat, urrun-edo... egun batez nahi zenukeena... Menane Oxandabaratz

Nik neuk gustura egingo nion haginka potroetan jelipolla hari, baina **amets** hura gauzaezina zen. Jon Arretxe

Zuk eta nik dugun **amets** berbera bilakatua dute bide. Hasier Etxeberria

Arruntkeria urrunetik etorritako **amets** horren parte da, eta horrekin batera gazte denboran gogamenean izaten nuen erritmo sinkopatua, jazz-zale amorratua bainintzen. Fernando Rey

Egitura bat, zeinaren bidez **amets** guztiak, ideia eta itxaropen guztiak gauzatzen diren. Harkaitz Cano

Administrazio honetako atalen arduradun gehienek deus guti dakite beren azpikoez, haien biziez, haien bizioez, lanera ekartzen dituzten **amets** edo amesgaiztoez. Aingeru Epaltza

Eta hau azpimarratzen dugu zeren eta helburu hori Arbelbideren **amets** eta hautu pertsonal bat baizik ez zela izan baitiote zenbaitek. Xipri Arbelbide

Darling andreak ez zekien zer pentsatu: Wendyren ustez egoera hura hain zen naturala, ezin zitzaion esan **amets** hutsa zela. Julen Gabiria

3 (izenondoekin)

Amets nahasi eta estugarri batetik esnatu berria nintzela irudi zuen. Koro Navarro

Bezero batzuek diote hemen lo egitean **amets** ederrak izaten dituztela. Ibon Uribarri

Begitartea bi ahurrez torratu nuen **amets** latzetik iratzartzen banintza bezala. Itxaro Borda

Orduan, nola hustu gure gurasoen etxea inoizko **amets** oso zahar batean, gure inkontzientearen hondoko txokoren batean, gureganatzeko desioa azaldu genuen hori guztiaz jabetu nahi izanaren erru izugarria lazgarriro sentitu gabe? Joxan Elosegi

Biek gordetzen zuten arimaren barruan **amets** xalo eta heroiko bat, haur-ametsa eta ankerkeria. Koro Navarro

-Miložs, **amets** zoragarria izan diat. Fernando Rey

Eguraldia gero eta hotzagoa eta bustiagoa zen, gauak ilunagoak, baina ez zegoen lokatzarik, haizerik edo euririk Harryren **amets** zoragarria lausotuko zuenik: quidditcheko zilarrezko kopa handia irabaztea, azkenean! Iñaki Mendiguren

Ahaztezina da, halaber, Kafkaren Itxuraldaketa-ko lehenengo esaldia: "Goiz batean, **amets** nahasi baten ondotik itzartzean, Gergor Samsak, ohean zetzala, bere burua intsektu izugarri bat bihurtuta ikusi zuen", edo Melvilleren Moby Dick haren estreinakoa: "Call me Ishmael". Xabier Mendiguren Elizegi

Ni **amets** bat izan nintzen zuretzat, nolabait, ez dakit gaztaro galdua berreskuratzeko sinboloa ala plazer haragikoien promesa lausoa, baina utopia moduko bat azken batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zegoen Edinburgon eta hurbileko herrietan zaldunik, jauntxorik, kaparerik, langilerik edo nekazaririk, bihotzaren zokoan edo gaueko **amets** gozoetan neskatxa hura gordetzen ez zuenik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gogoeta egiten zuen eternalki, bere **amets** antzuan, batere ezagutu ez zituen gauzez. Juan Garzia

Eta Kurdistani buruz geneuzkan **amets** eroengatik. Juan Kruz Igerabide

Behin, etxera itzuli eta ama lotan zegoen ohean, gora begira, eskua sabel handi haren gainean, irratia itzali gabe, baina loak hartuta eta, aurpegieraren soseguak ezagutzera ematen zuenez, gogoa **amets** samurren batean atseden hartzen. Joseba Sarrionandia

Nik uste emazte batentzat **amets** ederrena hori zen, noizbait haur baten ukaitea, horra non enekin hain goxoki egona zen Elena horrek kalitua bezala uzten ninduen bere ateraldi ezin sinetsizkoekin! Janbattitt Dirassar

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Non nintzen sobera ongi ez nekiela nindoan mendian; emeki, nik hala-hola ikusten nuen auzo-paisaiak **amets** giroa esaten diogun beste barne-paisaia hori sortu zuen. Koldo Izagirre

Amets aire arin batez onartzen zituen Piak harreman haiek, berari ez baino bere nobeletako neska haietakoren bati gertatuko balitzaio bezala: eta soseguz ibiltzen zen beti, mutu, on. Josu Zabaleta

Agian bitarte hartan printzeak horren gainean pentsatu, egun batez hemen azaldu, eta zapla eraukiko zizkidan, ezagutzen ninduten guztien aurrean ahal bazen, bere izena, bere titulua eta bere ondasun **amets**-egingarri guztiak. Matías Múgica

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta zein urrun azpikeria zantar haiek nire abentura-**amets** zirraragarrietatik? Alberto Ladron Arana

6 ***amerikar amets***

Herrialde pobrea da, herrialde iluna eta tristea, etsia, **amerikar ametsik** eta amerikar heroirik gabea. Koro Navarro

The american dream, **amerikar ametsa**. Gotzon Garate

Gure herriak AEBetako ekonomiarentzat baliagarria den immigrazio sistema behar du, baita **amerikar ametsa** islatuko duena ere. Berria - Mundua

Amerikar ametsaren lekuko. Berria - Kirola

7 amets amerikar

Tom Waitsen mundua topikoz betea aurkeztu izan digute beti, **amets amerikarraren** alderdi ilunaren ordezkari ofiziala balitz bezala. Berria - Kultura

Helburu horrekin **amets amerikarraren** bila joango da, baina gero ikusiko du ez dela hainbesterako». Berria - Kultura

Amets amerikarra zuten hauek betetzeko. Iñigo Aranbarri

"Gaur egun, emakume askorentzat **amets amerikarrak** milioika milako distantziara dagoela dirudi, ezen ia denborarik ez baduzu lo egiteko, nork dauka denbora amesteko?», nabarmendu zuen Milwaukeen. Berria - Mundua

Erdialdeko Amerikan bi amets daudela diote: **amets amerikarra** eta Europako ametsa. Berria - Euskal Herria

8 amets egin

Ez al zuen txikitan **amets egiten** ikerlari moduan ibiliko zela, era guztietako krimenak argitzen eta ordainarazten? Fernando Morillo

Askotan, nagusi asko dituela **amets egin**, eta gramofono baten baino gehiagoren aurrean laketzen da. Iñigo Aranbarri

Zuri eskatzen nizun barriro indar, zure eskua zen ostera Burgosko kartzelako hamahirugarren ziegaren horma berba batez zulatzen zuena, heriotzaren hurrengo maizterrak adorea har zezan **amets egin** ahal izateko. Koldo Izagirre

Gau batean, **amets egin** genuen biok, bakoitzaren ametsa bere esanahi bereziarekin. Elizen arteko biblia

Bai zinez sasoin paregabea, **amets egiterat** ekartzen gaituena udako burrunba eta harrabotsetarik landa. Herria

Israelek ez du onartuko dugula **amets egin** behar, okupazioa amaitu eta gure eskubideak bermatzen dituen arte. Berria - Mundua

Eta bakoitza zein zaletasuni gogotsuago atxikita egon den eta iraganean zeintzuk gauzatan gehien geratu garen eta gogoak zeintzuei gehien begiratu dien, haiexek dira gehien **amets egiten** bide ditugunak: abokatuek auzigintza eta legegintza, jeneralek burruka eta gudugintza, itsaslariek haizeekin hasi gudua burutzea, geuk ere geure lanari ekitea eta natura etengabe aztertzea eta aurkitu duguna aberri hizkuntzan azaltzea. Xabier Amuriza

Akordatzen ote diren zer **amets egiten** zituzten. Arantxa Iturbe

Amets egin nuen. Daniel Landart

"Zer **amets egin** duk ba?". Pablo Sastre

Gilenek badaki zer bideetan ibili naizen, zer atxikimenduz **amets egin** dudan. Piarres Aintziart

Egun-argiz **amets egitea** osasungarri izaten omen da. Iñaki Zabaleta

Txilikuk, ostera, gaur egungo gazte batek libururik irakurtzen ez badu ere ez zaiola ezer gertatzen adierazi du, esperimentatzeko edo **amets egiteko** badituelako beste modu batzuk, teknologia berriek ahalbidetzen dituztenak. Berria - Kultura

Aurreko urteetako esperientziak ez die jokalari horiei **amets egiteko** aukerarik ematen. Berria - Kirola

Hala ere, hurrengo segundoan (hain izan baitzitekeen mehea sare hori), ez dugu gogoratzen **amets egin** dugunik. Koro Navarro

Ahotsaren eta lumaren maisu, ustelgabekeriaren txapeldun, behin eta berriro hitz horiekin ahoa berotu ondoren, denborarekin gero hainbatek eta hainbatek **amets egin** duen lanpostuaren bindikatzaile sutsua egin zen Jean-Baptiste. J.M. Olaizola "Txiliku"

Amets egingo nuke lipar batez... Txillardegi

Eta borrero-lanarekin **amets egiteari** utzi zion. Jose Morales

Zeinek ez zuen txakolin freskoaren laguntzaz **amets egiten**? Paddy Rekalde

Gizakiok badugu **amets egiteko** joera. Gotzon Garate

9 *amets huts*

Hau ez ditake orobat **amets hutsezko** beldurra, Irakiako arma heietara berrehun bat mila soldadorekin amerika joanarazi zuena! Herria

Baina lanaren segurtamenik gabe, etxea, autoa, dena **amets hutsa** bihurtzen du legeak, ezina. Berria - Ekonomia

Baina, lehenagokorat itzulirik, Joanes, kartari buruz asma eta azal daitezkeen hipotesiak **amets hutsak** dituk, frogarik ezean... Joan Mari Irigoien

Gülbaharren xarma beroa, bere emakume-urrin are beroagoa, **amets hutsa** iruditzen zitzaizkion. Fernando Rey

Amets hutsa da kanpotik barrurantz gizakia arakatzen ari dela ustea, arakatzen ari den arakatzailea gizakiaren barru-barrukoa delako beti, nahiz eta kanpoan jarri, nolabait, bere burua arakatzeko. Jenaro Garate

Beharbada, **amets hutsa** zen oro; apika, ez. Aritz Gorrotxategi

Ez da gehiago **amets hutsa**, Europako Erkidegoa badabil, Ikatzaren eta Altzairuaren Erkidegoa alhan da. Piarres Xarriton

Penelopek ametsetan negar egiten zuen, **amets hutsa** izanik ere, arranoak antzara guztiak hil zizkiolako, eta txirikorda ederreko emakume akaiarrak inguruan bildu zitzaizkion. Juan Kruz Igerabide

Posible zer den kontuan hartu gabe, **amets hutsa** da desiragarri den hori. Juan Garzia

10 *amets-irudi*

Eta urduri lo egiten hasi zen: **amets-irudi** berriak agertzen zitzaizkion, sabelduak, astunak, kolorez margotutako zuhaitz-enborren antzekoak, pentsamenduak baino are lasterragoak. Jose Morales

Gero, alde batera ulertzekoa ere bada nire inguruko andre hezur-haragizkoak ziztrinak eta ia ezdeusak iruditzea, neure **amets-irudi** haien aldean. Xabier Mendiguren Elizegi

Amets-irudi denak ez ziren, ordea, hain eztiak, gogoeta gaiztoak uxatzeko ahalegin guztiak eginda ere, Norak sarriagotan imajinatzen baitzuen bakardadeko bizitza, Andreasekin batera baino: "Nire benetako egoera agertu izan banio!". Anjel Lertxundi

11 *amets izan*[1] du *ad*

Bat-batean berebiziko argitasuna jaitsi zen zerutik eta denengana zabaldu zen, bakoitzari **amets zituen** argia eta osasuna emanez. Askoren artean

Haren bisaia bozkarioaren ispilu zen, martini-itsaso gozoak **amets zituelako** marka. Aingeru Epaltza

Erramun zuen gogoan, segur aski, hori esatean: **amets zuen** herrixkara bizitzera joan berri zela heriotza ate joka joan zitzaion lagun zaharra. Imanol Zurutuza

Amets nuen azken une haietan beti ukatu izan zidana egiteko aukera. Joxan Elosegi

Eta ilunpeetan, gelaren mugak infinituraino zabalduz, Liubaren begi liluratuen aurrean gizaki ñimiño batzuk agertu ziren, izugarri gazteak, amarik eta aitarik gabeak, etsai zuten mundu honen kontrako eta **amets zuten** munduaren aldeko borrokalari sutsuak. Jose Morales

12 *amets izan*[2] da *ad*

Eta maita izan ditugun maitagogo denak eta bakoitza banan-banan; gure bizitzan **amets izan** genuen on, egia eta eder oro bene-benetan ezagutuz eta maitatuz biziko gara; eta asmaezin gainezka on, egia eta eder den Jaungoikoa bera ezagutuz eta maitatuz. Jenaro Garate

Bai, hegoak dituzte, eta margolari batek ere berdindu ezin ditzakeen begiak eta ñabardurak, **amets daitezkeen** xarma eta forma guztiak. Josu Zabaleta

Ametsak, ordea, **amets direlako** dira politak, jainkoak atzemanezin direlako jainko diren bezalaxe. Karlos Linazasoro

Ametsak errealitate bihurtzen direnean, ordea, **amets izateari** uzten diote, eta orain ametsa gaur partida irabazi eta kanporaketa gainditzea da. Berria - Kirola

Zeren eta, oraino ere, **amets izan** zela iduritzen baitzait, noiz eta gertatuari beha paratzen bainaiz... Joan Mari Irigoien

Horregatik onartzen zituen pasareletako lanak etsipenez, beste batzuentzat **amets izan** zitekeena, zoritxarra baitzen berarentzat. Hasier Etxeberria

13 *amets txar*

Analisien emaitzak benetan txarrak izan balira, zure **amets txarrenean** bezain txarrak? Lourdes Oñederra

Ez naiz ondo gogoratzen, baina ez zen **amets txarra** izango, adarra bero-bero esnatu naiz eta. Pablo Sastre

Afaldu gogo handiagoaz egin nuen eta lo ere ongi, **amets txarren** batzuk egin arren. Gotzon Garate

Lo bakarra eta **amets txarrik** gabea. Anjel Lertxundi

Garrantzia gutxiagokoa, funtsezkoa ez dena, ahaztu egiten duk; bazterrera botatzen duk, **amets txarrak** bezala. Xabier Olarra

Alegia ez dela zegoen tokitik mugitu, eta **amets txar** baten antzeko zerbait jasan duela. Bernardo Atxaga

-Joana, **amets txar** bat baino txarragoa haiz! -esaten du Llumek, Joanaren atzetik, eta Joana atzera jiratu, Llum besarkatu eta musuz betetzen du. Antton Olano

Ametsa dirudi, **amets txar** horietako bat. Berria - Harian

Zer, **amets txarren** bat duzu ala? Joseba Sarrionandia

14 *ametsak amets izan*

Izan badena izan badenik sinetsi ez, eta **ametsak amets direla** nola sinets? Joxerra Garzia

Eta azken puntuaren **ametsak amets izaten** jarraituko zuela denboraldi luze batez. Fernando Morillo

15 *ametsetako lukainka*

Berdeetako hiru diputatuek kontra bozkatu dute azkenean eta xedea «ametsetako **lukainka**» besterik ez dela adierazi dute. Berria - Euskal Herria

Ametsetako **lukainkak**, bere ustez, toki egokia aurkiturik ere ez baitzuen dirurik haren erosteko. Xipri Arbelbide

Etxearen eta hangarraren arteka hertsian, gizonak eta haurrak taldean eleka ikusten zituen, baina ez zuen hargatik **ametsetako lukainkak** zenbatzeko astirik galdu. Itxaro

Borda

Behin hola, bidean nintzela, uda mineko galerna ari zela kanpoan, beribilez etxerakoan, **ametsetako lukainketan** zintzilik, bi zamari, bata zuria eta bestea beltza, agertu zitzaizkidan faroen eremuan. Itxaro Borda

16 *ametsetan egin*

Ez dakit (hasi naiz berriro!) baina **ametsetan egin** ondoren esnatzen naizen bakoitzeko, aldatu egin naizela ohartzen naiz. Josu Zabaleta

Baina ez: Wendyk ez zuen **ametsetan egin**. Julen Gabiria

Ametsetan egin nuen; beti egiten da amets pixka bat egunean zehar gertatu denaz. Josu Zabaleta

Banekien zein zen Basurtoko Joan Sanzen bekatu izugarria; **ametsetan egiten** ikusia nuena. Edorta Jimenez

Gero, dio, "bizitzaren zurrunbiloak beste hainbat lekutara eraman ninduen, eta bost umeren ardura duenak ez du **ametsetan egiteko** denbora gehiegirik hartzen". J.M. Olaizola "Txiliku"

Itsasertzeko errepidetik joan zen mugarantz, pozik, **ametsetan egiten** eta ikuspegiaz gozatzen, aspaldiko partez naturaren edertasunean arreta ipinita. Migel Angel Mintegi

-Bart gauean **ametsetan egin** al duk? Pedro Alberdi

Eta begiak itxi zituen, kordea galdu, ahulduraren azken mugan **ametsetan egiteko**. Iñaki Zabaleta

Ametsetan egiten dut; apur bat, ez oso serio. Eskarne Mujika

Ametsetan egina nuen. (eta ez Hannaz!). Joxe Austin Arrieta

17 *sukar amets* ik **eldarnio**.

Sukar-ametsetan, ate irekiez hitz egiten zuen, ateak irekitzeko eskatzen zuen. Jose Morales

- **Sukar-ametsetan** askotan aipatu duzulako. Koro Navarro

- **Sukar-amets** gaiztoen mende hago, Mateo; eldarnioan. Edorta Jimenez

Sukar-ametsetan ari zen. Ander Irizar

Sukar-amets haietan Romako sotoan nengoen, ilunpetan, aurreko egunean bezalaxe. Alberto Ladron Arana

18 *txakur amets* amets hutsala.

Urtetik urtera apalago sentitzen ditut Jon Etxaidek **txakur-amets** deitzen zituen kimera eta ilusio-modu gehiegizko guztiak. Anjel Lertxundi

Halako fantasiak, ordea, ez dira esnaldiko **txakur-amets** soil edo amets eroak. Xabier Olarra

Bigarrena, berriz, Lisboan hartuko zutelakoan ziren-eta, hara amets hura **txakur-amets** bihurturik. Iñaki Zabaleta

Munduko **txakur-amets** guztiak baino hobe dira lagun zintzo batzuk inguruan. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amets asko (5); **amets bakarra** (4); **amets bat** (177); **amets bat baino** (9); **amets bat besterik** (8); **amets bat da** (6); **amets bat dela** (7); **amets bat egin** (7); **amets bat ere** (6); **amets bat izan** (39); **amets bat zela** (6); **amets batean** (37); **amets batean bezala** (14); **amets batek** (15); **amets baten** (39); **amets baten barruan** (4); **amets batetik** (15); **amets bati** (4); **amets bera** (13); **amets berbera** (11); **amets berri** (4); **amets eder** (10); **amets eder bat** (4); **amets ederra** (9); **amets edo** (8); **amets egin** (149); **amets egin dut** (24); **amets egin eta** (6); **amets egin nuen** (15); **amets egin ote** (4); **amets egin zuen** (27); **amets eginarazten** (8); **amets egindakoa** (4); **amets eginez** (8); **amets egingo** (6); **amets egitea** (19); **amets egiteko** (41); **amets egiteko aukera** (4); **amets egiten** (143); **amets egiten ari** (5); **amets egiten du** (8); **amets egiten duen** (5); **amets egiten duena** (4); **amets egiten nuen** (14); **amets egiten zuela** (5); **amets egiten zuen** (23); **amets egiten zuten** (4); **amets eragiten** (6); **amets eroak** (6); **amets eta** (47); **amets ez** (4); **amets gaizto** (27); **amets gaizto bat** (10); **amets gaiztoa** (13); **amets gaiztoak** (11); **amets gaiztoetatik** (4); **amets gaiztorik** (4); **amets gero** (4); **amets gero eta** (4); **amets goxo** (7); **amets gozo** (6); **amets gozoa** (4); **amets gozoak** (4); **amets guztiak** (16); **amets guztien** (4); **amets haiek** (14); **amets haietan** (4); **amets handia** (6); **amets handirik** (6); **amets hartan** (16); **amets hau** (5); **amets hizketan** (5); **amets hori** (30); **amets horiek** (9); **amets horrek** (8); **amets horretan** (12); **amets hura** (27); **amets hutsa** (28); **amets hutsa da** (6); **amets izan** (6); **amets luzearen** (4); **amets nahasi** (4); **amets txar** (5); **amets zuen** (5); **ametsak amets** (14); **aspaldiko amets** (4); **baina amets** (17); **baitzuen amets** (4); **bart amets** (4); **bat edo amets** (4); **batean amets** (6); **batekin amets** (10); **batekin amets egiten** (4); **baten amets** (6); **bere amets** (27); **bere amets eta** (4); **bertze amets** (4); **beste amets** (20); **beste amets bat** (12); **bi amets** (5); **biziarazten den amets** (4); **colina eta amets** (8); **da amets** (17); **dela amets** (6); **dela amets egiten** (4); **den amets** (9); **den amets bat** (5); **dena amets** (9); **du amets** (23); **duela amets** (4); **duen amets** (6); **dugu amets** (11); **dut amets** (34); **dut amets handirik** (4); **dute amets** (16); **duzu amets** (11); **edo amets** (13); **egin amets** (4); **egin dut amets** (7); **egin duzu amets** (5); **egin nuen amets** (19); **egin zuen amets** (6); **egiten du amets** (7); **egiten dut amets** (9); **egiten dute amets** (9); **egiten nuen amets** (12); **egiten zuen amets** (15); **egiten zuten amets** (6); **emakume nintzela amets** (4); **ene amets** (8); **ere amets** (16); **eta amets** (143); **eta amets arzallus** (20); **eta amets bat** (4); **eta amets egin** (12); **eta amets egiten** (8); **ez amets** (4); **ez da amets** (4); **ez dut amets** (9); **ez zen amets** (5); **ezin amets** (4); **ezinezko amets** (5); **gauean amets** (6); **gero amets** (4); **gure amets** (11); **hori amets** (4); **horren amets** (4); **hura amets** (4); **izan nuen amets** (4); **izan zuen amets** (6); **kolina eta amets** (4); **naiz amets** (4); **neure amets** (4); **nik amets** (4); **nintzela amets** (5); **nintzela amets egin** (4); **nire amets** (17); **nola amets** (4); **nuen amets** (43); **sukar amets** (4); **txakur amets** (5); **zela amets** (15); **zela amets egin** (7); **zen amets** (18); **zer amets** (15); **ziren amets** (4); **zituen amets** (7); **zuela amets** (7); **zuen amets** (66); **zure amets** (4); **zuten amets** (12)

ametsak amets (14); **ametsak baino** (4); **ametsak bete** (4); **ametsak beteko** (3); **ametsak bezala** (3); **ametsak dira** (9); **ametsak egia** (6); **ametsak egia bihurtzen** (3); **ametsak egin** (5); **ametsak egiten** (4); **ametsak ere** (10); **ametsak ere ez** (4); **ametsak errealitate** (9); **ametsak errealitate bihurtzeko** (3); **ametsak eta** (37); **ametsak eta ilusioak** (7); **ametsak eta itxaropenak** (3); **ametsak ez** (11); **ametsak iparralde** (3); **ametsak iparralde izoztuan** (3); **ametsak izaten** (3); **ametsak sortzen** (3); **ametsak zer** (3); **ametsak zuen** (3); **ametsarekin batera** (3); **ametsaren barruan** (3); **ametsaren esanahia** (11); **ametsaren eta** (9); **ametsari emana** (5); **askatasun ametsak** (3); **baina ametsak** (3); **bakoitzak bere ametsak** (3); **baten ametsak** (5); **bere ametsak** (16); **bere ametsaren** (3); **beren ametsak** (4); **dira ametsak** (3); **dituzte gure ametsak** (3); **durruty gure ametsakoak** (3); **edo ametsaren** (3); **eta ametsak** (47); **eta ametsak eta** (3); **eta ametsaren** (4); **etorkizuneko ametsak** (3); **ezinezko ametsak** (3); **gazteen ametsak** (3); **genituen ametsak** (3); **geure ametsak** (3); **gure ametsak** (11); **gure ametsakoak** (4); **haren ametsak** (4); **joseren ametsak** (3); **neandertalen ametsak** (6); **neanderthalen ametsak** (6); **nire ametsak** (17); **nire ametsaren** (3); **sukar ametsak** (4); **zakur ametsak** (4); **zituen ametsak** (6); **zuen ametsaren** (3); **zure ametsak** (5)

agertu zitzaion ametsetan (9); **ametsean bezala** (4); **ametsean ikusi** (5); **ametsei buruz** (3); **ametsek eta** (3); **ametsek ez** (9); **ametsek ez dute** (5) eta ametsek (4); **ametsen artetik** (3); **ametsen baratza** (4); **ametsen barruan** (3); **ametsen bidez** (4); **ametsen distantzia** (3); **ametsen distantzia neurtzera** (3); **ametsen esanahia** (4); **ametsen eta** (8); **ametsen giltza** (3); **ametsen interpretazioa** (4); **ametsen mundua** (7); **ametserako bidean** (3); **ametsetako andre** (5); **ametsetako bat** (8); **ametsetako bizitza** (3); **ametsetako irudiak** (3); **ametsetan agertu** (5); **ametsetan agertzen** (5); **ametsetan ari** (48); **ametsetan ari naiz** (3); **ametsetan ari naizela** (3); **ametsetan ari nintzela** (3); **ametsetan ari nintzen** (5); **ametsetan ari ote** (4); **ametsetan ari zara** (4); **ametsetan ari zela** (3); **ametsetan ari zen** (7); **ametsetan azaldu** (3); **ametsetan baino** (3); **ametsetan berriro** (3); **ametsetan bezala** (27); **ametsetan bizi** (8); **ametsetan edo** (6); **ametsetan egin** (6); **ametsetan egiten** (4); **ametsetan egon** (6); **ametsetan eman** (3); **ametsetan entzun** (5); **ametsetan ere** (39); **ametsetan ere ez** (10); **ametsetan eta** (12); **ametsetan eta esan** (3); **ametsetan ez** (8); **ametsetan hasi** (7); **ametsetan hasi nintzen** (4); **ametsetan hasten** (5); **ametsetan hitz** (4); **ametsetan ibili** (4); **ametsetan ikusi** (9); **ametsetan ikusi zuen** (3); **ametsetan ikusitako** (3); **ametsetan ikusten** (6); **ametsetan jarraitu** (4); **ametsetan murgildu** (3); **ametsetan nengoela** (4); **ametsetan ozen** (3); **ametsetan sinesten** (4); **ametsetan zegoela** (3); **ametsetan zegoen** (6); **ametsetarik ari** (7); **ametsetik esnatu** (3); **ametsetik esnatzen** (3); **ametsez betetzen** (3); **ametsez egina** (3); **ametsez eta** (4); **baina ametsetan** (6); **batean ametsetan** (4); **bere ametsean** (4); **bere ametsekin** (3); **bere ametsen** (14); **bere ametsen eta** (3); **bere ametsetako** (14); **bere ametsetan** (7); **bere ametsetatik** (4); **bere ametsezko** (3); **beren ametsen** (5); **bustoren ametsetan** (3); **da ametsetan** (5); **deitu zidan ametsetan** (3); **dut ametsetan** (4); **edo ametsetan** (7); **ene ametsetako** (5); **erdi ametsetan** (12); **eta ametsean** (9); **eta ametsen** (18); **eta ametsetako** (4); **eta ametsetan** (46); **eta ametsetan ari** (3); **eta ametsetan ere** (4); **eta ametsetan hasi** (3); **eta ametsetan hasten** (5); **eta ametsezko** (3); **eta bere ametsetako** (3); **europarra ametsez** (3); **ez ametsetan** (4); **ezta ametsetan** (4); **ezta ametsetan ere** (4); **gizona ametsez** (3); **gizona ametsez egina** (3); **gure ametsen** (5); **gure ametsetako** (5); **gure ametsetan** (4); **haren ametsetako** (4); **ikusi zuen ametsetan** (9); **naiz ametsetan** (3); **neure ametsean** (6); **neure ametsetako** (3); **neure ametsetan** (3); **nire ametsean** (8); **nire ametsen** (7); **nire ametsen distantzia** (3); **nire ametsetako** (10); **nire ametsetan** (6); **nuen ametsetan** (3); **sukar ametsetan** (4); **zen ametsetan** (5); **zidan ametsetan** (3); **zituen ametsetan** (4); **zitzaion ametsetan** (10); **zuen ametsetan** (19); **zure ametsetako** (4)

ametsik ederrenak (4); **ametsik egin** (7); **ametsik egiten** (6); **ametsik ere** (5); **ametsik eta** (5); **ametsik ez** (14); **ametsik gabe** (10); **ametsik gabe lo** (3); **ametsik gabeko** (9); **ametsik gabeko lo** (3); **ametsik gozoena** (5); **ametsik handiena** (7); **ametsik izan** (3); **baina ametsik** (3); **batere ametsik** (3); **bere ametsik** (5); **beste ametsik** (13); **beste ametsik ez** (5); **bizitzako ametsik** (3); **egin ametsik** (4); **eta ametsik** (5); **ez egin ametsik** (4); **nire ametsik** (8); **nuen ametsik** (3)

---

ametsaldi *iz* amets egiten den aldia.

Ametsaldi batean galdurik zirudien Elizak. Irene Aldasoro

Non dago, bai, gure nitasuna eta gure osotasuna, gure bizitzako loaldi eta **ametsaldi** orotan, zeinak baitira, bataz bertze, gure bizitzaren herena? Joan Mari Irigoien

Txitxikoven eskari bitxiak **ametsaldia** eten zion bat-batean. Jose Morales

Neska begiko nuen, arrunt, baina, hartaraino, beheraldi bortitzak gainditzeko **ametsaldietan** baizik ez zitzaidan kaxkoratu harekin harreman iraunkorrik izan nezakeenik ere. Aingeru Epaltza

Behin eta berriz **ametsaldiak** kitto, eta errealitate idorra gailen. Txillardegi

Haundiek ere beren **ametsaldiak** izanki, baina atzartze dorpeak ondikotz nasaiki. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

"Mainuetako" hondartzaren erdi-erdian, eskailera bikoitzaren gainean, Errazu alkatearen jauregi txapal ezin ederragoa kokatzen zitzaidala, **ametsaldi** dirdaitsuaren ardatzean. Txillardegi

ametsarazi, ametsaraz(i), ametsarazten dio *ad* amestera behartu.

Amets berbera bigarren aldiz **ametsarazi** zion, eta halako amorru moduko bat sentitzen zuen bere ardienganako, hain leialak zituen lagunen aurka. Xabier Aranburu

ametsarte *iz* ametsen arteko tartea.

Amets guztiak berreraiki zitzakeen, **ametsarte** guztiak. Juan Garzia

Beste batek dio Konpainia guztiahalduna dela, baina gauza nimiñoetan baizik ez duela eragiten: txori baten garrasian, herdoilaren eta hautsaren ñabarduretan, egunsentiko **ametsarteetan**. Juan Garzia

ametseta *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* amets.

Eta **ametseta** izekia lagata, Yvonnek sentitu zuen bat-batean gorantz jaso eta izarretara eroaten zutela, ur uhinen eraztunen antzera goi-goian gero eta zirkulu zabalagoetan sakabanatzen ziren izar zurrunbiloen artetik [...]. ETC-literatura, saiakera

Leihoko ikusleria gozatzen ari zen ikuskizunarekin; atzean, itzal gorriztak zabaltzen hasiak ziren, eta nondik edo handik haur baten negarra aditu nuen ustekabeko bakealdi batean, gogora ekarriz Mexikon nengoela eta ez zeruan haxixezko **ametseta** pornografiko batean. ETC-literatura, saiakera

ametsetako *izlag* ametsezkoa.

Bere puta tristeen memoriak idatzi zituen hark bezala, gure (**ametsetako**) maitaleen memoriak idaztea otu zaigu hemen goitik, Durangoko Azokako balkoi honetatik, horietako batzuk ikustean Berria - Kultura

Txarrenean, bizipen eta pasadizo anitz dituen berdegunea zapalduko dute lapurtarrek, **ametsetako** agertokia hainbatentzat. Berria - Kirola

Alde ikaragarria zegoen Lolak nahi izanen zituzkeen eta benetan zituen seme-alaben artean, eta uneoro konparatzen zituen **ametsetako** seme-alaba eredugarri haiek bere benetako seme-alabekin, seme-alaba alfer, zabar eta ez-erneak baitzituen. Fernando Rey

Ametsetako lukainkak, bere ustez, toki egokia aurkiturik ere ez baitzuen dirurik haren erosteko. Xipri Arbelbide

Soldaduen Amonarekin gogoratu nintzen, baina lausoki, **ametsetako** irudikapen batek baino trinkotasun gutxiago zuen-eta beti puntua egiten aritzen zen emakumearen oroitzapenak. Anjel Lertxundi

Neurri gozoko oparia zen, koloreetako paperean bildutakoa: ez zen **ametsetako** oparia. Unai Elorriaga

Behinola, harekin ohean ordubetez isuri gabe nenbileneko batean, esan zidan, hasperen eta garrasien artean, erabat zoriontsu egiten nuela, neu nintzela, eta ez beste inor, haren **ametsetako** gizona. Josetxo Azkona

Ez da nire **ametsetako** Line, ez da zain nagoen Line, egiazko Line baizik, haurtzaroa garraztu zidan Line demonio hura. Eskarne Mujika

Akuariumeko isiltasuna, **ametsetako** irudiak. Pablo Sastre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ametsetako andre (5); **ametsetako bat** (8); **ametsetako bizitza** (3); **ametsetako irudiak** (3); **ene ametsetako** (5); **gure ametsetako** (5); **haren ametsetako** (4); **neure ametsetako** (3); **nire ametsetako** (10); **zure ametsetako** (4)

ametsetan 1 *adlag* amets egiten.

Ametsetan bezala, oroimenean ere, geure begietatik baino, kanpotik gomutatzen dugu bizitakoa, bideoa edo filma balitz bezala. Sonia Gonzalez

Gauean, basoan lo egin zuten, eta Gwain zalduna agertu zitzaion Arturri **ametsetan**, inoiz baino dotoreago; haren atzetik behartsu talde bat zetorren, esanez: Juan Kruz Igerabide

Kontu hauetaz mintzatzerakoan pentsa daiteke **ametsetan** ari garela eta ez garela mundu honetan bizi. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Handik aurrera, atzean bezalaxe, basamortuko lur zurikara eta **ametsetan** ere jazartuko zaizun satraka motxa besterik ez (gizakiaren ondoan bizi denez, honek ere badu bere izena: coirón). Iñigo Aranbarri

-Baliteke bai hori -alabak esan-, niri ere gertatu izan zait, **ametsetan** dorre-gainetik beherantz erori eta behin ere ezin beheraino heldu, eta esnatzen nintzenean erabat hebaindua aurkitzen nintzen, egiatan erori izan banintz bezala. Patxi Ezkiaga

Penelopek **ametsetan** negar egiten zuen, amets hutsa izanik ere, arranoak antzara guztiak hil zizkiolako, eta txirikorda ederreko emakume akaiarrak inguruan bildu zitzaizkion. Juan Kruz Igerabide

Izutu egin naiz, **ametsetan** ez nagoelako froga baita, hau guztia errealitatean ari da gertatzen. Agurtzane Juanena

Benaz **ametsetan** egon banintz bezala gertatu zait. Koldo Izagirre

Ipuinekoa nor den galdetu diodanerako **ametsetan** zegoen Martin. Eider Rodriguez

Tebasko jainkoa agertu zitzaion **ametsetan**, eta agindu zion Egiptoko apaiz guztiak hilarazteko. Iñaki Iñurrieta

2 irud/hed

-Arazo bakarra daukat horretarako -jarraitu du **ametsetan**. Jon Arretxe

Bere barne munduan, **ametsetan**, Ramon ibili egiten zen. Berria - Kultura

Horrela, Andres Hurtado desberdin sentitzen zen San Carloseko korridoreetan bere ikaskideekin hitz egiten zuenean, eta bere gelatxoko bakardadean **ametsetan** zegoenean. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agertu zitzaion ametsetan (9); **ametsetan agertu** (5); **ametsetan agertzen** (5); **ametsetan ari naiz** (3); **ametsetan ari naizela** (3); **ametsetan ari nintzela** (3); **ametsetan ari nintzen** (5); **ametsetan ari ote** (4); **ametsetan ari zara** (4); **ametsetan ari zela** (3); **ametsetan ari zen** (7); **ametsetan azaldu** (3); **ametsetan baino** (3); **ametsetan berriro** (3); **ametsetan bezala** (27); **ametsetan bizi** (8); **ametsetan edo** (6); **ametsetan egin** (6); **ametsetan egiten** (4); **ametsetan egon** (6); **ametsetan eman** (3); **ametsetan entzun** (5); **ametsetan ere ez** (10); **ametsetan eta esan** (3); **ametsetan ez** (8); **ametsetan hasi nintzen** (4); **ametsetan hitz** (4); **ametsetan ibili** (4); **ametsetan ikusi zuen** (3); **ametsetan ikusitako** (3); **ametsetan ikusten** (6); **ametsetan jarraitu** (4); **ametsetan murgildu** (3); **ametsetan nengoela** (4); **ametsetan ozen** (3); **ametsetan sinesten** (4); **ametsetan zegoela** (3); **ametsetan zegoen** (6)

baina ametsetan (6); **batean ametsetan** (4); **bere ametsetan** (7); **bustoren ametsetan** (3); **da ametsetan** (5); **deitu zidan ametsetan** (3); **dut ametsetan** (4); **edo ametsetan** (7); **erdi ametsetan** (12); **ez ametsetan** (4); **ezta ametsetan ere** (4); **gure ametsetan** (4); **ikusi zuen ametsetan** (9); **naiz ametsetan** (3); **neure ametsetan** (3); **nire ametsetan** (6); **nuen ametsetan** (3); **sukar ametsetan** (4); **zen ametsetan** (5); **zituen ametsetan** (4)

ametsetarik *adlag* ametsetan.

Galdu guduaren ondotik Claviro mendian gaua igaiten zutela pausatzeko Jakobek, **ametsetarik**, sustatzen du aintzindaria guduaren segitzerat biharamunean. Herria

Ametsetarik ari ote zen Magali ere? Janbattitt Dirassar

Halatan, Herri Urrats goiz hartan, deabrua zuten ikastolako haur eta etxekoekin batera Senperera abian nintzen, bezperako alkohol usainak ezin barreiatuz, oraino **ametsetarik**. Itxaro Borda

Hortik dator bada: Lehenbizikorik, gizakiak libre direla uste izatea; beren nahi izateak eta beren desirak sendi dituzte, baina nahi izateko eta desiratzeko kausak ez dituzte ezagutzen eta ez dute **ametsetarik** ere haiei pentsatzen. Piarres Xarriton

-Baietz harekilan nintzala eta ez nintzan **ametsetarik** ari, egiazki harekin nintzan. Michel Oronoz

---

ametsez *adlag* ametsetan.

Ametsez zebilen jarraian: Iker ezkonduko zen menturaz. Itxaro Borda

Maitemindua egon behar zuen, jakina, porturik portu zihoan **ametsez** Andoni Olaberen itaunari erantzun barik urruntzen zenean. Koldo Izagirre

Everest-en lehen igaitearen 50. urtemuga ospatzen den garai huntan, zonbeitzu Himalaiako kasko ospetsu horieri so dira, **ametsez** bederen. Herria

Madrilen 1915eko urriaren 12an jaioa, **ametsez** baino ez bada ere, Airako Haraneko Amurrioko sentitzen da. Edorta Jimenez

---

ametsezko *izlag* ametsei dagokiena.

Praga **ametsezko** ipuin batetik ateratako hiria dela esan ohi da. Berria - Kirola

Ondoren, **ametsezko** xuxurlo zehazgabe batean murgildua zirudien Inkisiziokoen ahotsen soinuak. Koro Navarro

Hogeita lau ordu eskas barru abiatuko zen trena Hegoaldeko Geltokitik **ametsezko** lurralde urrunetara. Anton Garikano

Ametsezko lekua, zorrotz zaindua. Jon Muñoz

Hego AmerikaBolivian bozak zituzten igande huntan Evo Morales president gaiaren **ametsezkoak**. Herria

Gainera, era horretara finkaturiko balioak agerian uzten digu **ametsezkoa** dela terminoak besterik gabe hartzea, hots baten eta kontzeptu baten lotura bailiran. Isabel Arrigain

Gezurrezkoa, ordea; edo, zuzenago esatera, **ametsezkoa**. Karlos Linazasoro

Bazirudien lokartu egiten zela eta bere **ametsezko** mundu berezian bizi zela; amesgaiztoz jositako mundu berezian, nik uste, asaldatu eta larritu egiten baitzen oso. Mirentxu Larrañaga

Eszena hartan ikuslea baino ez nintzela konturatu nintzen berehala, nire **ametsezko** niaren gihar bat mugitzea ez zitzaidala posible, bertan, kristalaren beste aldean nengoela argi zegoen arren. Iban Zaldua

Baina halakorik ezean, aurrerabidea nuen eginkizun bakarra, eta alferrikakoak nituen gainerako kontsolamendu **ametsezkoak** oro. Karlos Linazasoro

Berdabioko jaunak ez daki urrearen asmazio **ametsezkoa** egunerokotasun mendekuzkoa bihurtu zaiola Trabukori. Anjel Lertxundi

---

ametsgaizto ik **amesgaizto**.

---

ametsondo *iz* ametsaren ondoko denbora.

Burdina hondarrak baliatzen irakatsia zion oiartzuarrak atera zuen **ametsondo** hartarik. Koldo Izagirre

---

ametz 1 *iz* haritzaren antzeko zuhaitza, lur hondartsuetan hazten direnen artean egur gehien ematen duena*(Quercus tozza* edo *Q. Pyrenaica)*.

Hegoalderago, **ametza** eta, zenbat eta hegorago, hostoak lakartuz, artea. Pello Zabala

Bakarrik nago, patioko **amet** **Xabier Montoia**

Horren ondorioz zer entzuten dugu gure inguruan orai: beharko direla ametz ondo horiek moztu diru laguntzak ez galtzekotz. Herria

Joan ziren denbora haiek; joan ziren orduko txoriak, joan orduko **ametz** eta sagarrak. Pablo Sastre

Ametz, lizar, pago eta artez betea. Txillardegi

2 ***ametz arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Beste zuhaitz jende gartsuago batek gorrirako joera du, astigar gehienak, lertxuna, likidanbarra, haritzen aldra (kanduduna eta kandugabea, **ametz arrunta** eta ilaunduna, nortekoa edo amerikarra, erkametza...), gereziondoa eta sagarrondoa tartean. ETC-prentsa

3 ***ametz ilaundun*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Ametz ilaunduna edo haritz ilaunduna ("Quercus pubescens", sin "Quercus humilis") Fagaceae familiako zuhaitza da, hegoaldeko Europan eta hego-mendebaldeko Asian jatorria duena. ETC-entziklopedia

4 ***kanariar ametz*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Kanariar ametza ("Quercus canariensis") Fagaceae familiako ametza da, 20-30 m inguru luzea. Bere izendapenak bestelakorik dioen arren, egun ez da Kanarietan bizi (iraganean ziur asko bai). ETC-entziklopedia

---

amezketar *iz/izond* Amezketakoa, Amezketako biztanlea.

Nola Amezketan hainbeste mandeuli zegoen, herrikoei, txantxetan, euliak esaten zietela adierazi zien ostatariak barrez Martini eta Bautistari, eta horregatik astintzen zituela morroi xelebre hark, bi **amezketar** sartzen zirenean, mahaiak eta aulkiak zapiarekin. Azaroan Joxe Etxeberria Sagastume **amezketarra** eta Jose Luis Pagazaurtundua laudiotarra zendu ziren Areetan, autoan lehergailuak eztanda egitean. Koro Navarro

Nafarrak garaitu du xapelketa berean Saralegi **Amezketar** gaztea. Herria

Garikoitz Ezkergain **amezketar** gazteak, 26 urtekoak, bizia galdu du Txindokiko mazeletan. Herria

-Ez al duzue zuek behin ere Pernando **Amezketarraren** berri aditu? Koro Navarro

Ez goaz oso urruti: Pernando **amezketarra** eta Iztueta zaldibiarra-eta, haiek bizi zireneko urte haietarainoxe juxtu. Pello Zabala

Fernando, zorgabetzeak dakarren pozaren aldarrikaria da: **amezketarra** izaki, eulia, eta euliak uda dakar. Markos Zapiain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **imanol altuna amezketarra** (3); **pernando amezketarra** (8); **pernando amezketarrak** (5); **pernando amezketarraren** (7)

---

amezki *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* ametzaren zura.

Milaka urtetan sagardoaren ohaidegokoak izan dira zurak, zur denak ez badira ere asko: lizarkia, haltzakia, sagarkia, hurrizkia, urkikia, zumekia, sahaskia, gaztainkia, gerezikia, harizkia, pagokia, intxaurkia, artekia, sasiakaziakia, **amezkia**, erkamezkia... ETC-prentsa

---

amezti *(corpusean ez dago; ETCn **83** agerraldi)* *iz* ametz basoa; ametz asko dagoen lekua.

Basoko 9.000 hektareatik erdia, gutxi gorabehera, **ameztiek** hartzen dute. ETC-prentsa

Suhiltzaileek iluntzerako lortu zuten mendean hartzea, baina 8,6 hektarea kiskalita gelditu ziren: pinudiak eta **ameztiak**, batez ere. ETC-prentsa

Horren adierazgarri dira sakanetan ikus daitezkeen pagadi eta **ameztiak**. ETC-prentsa

Quercus generokoen artean, haritz kandudunak, haritz kandugabeak, **ameztiak**, erkameztiak, artadiak eta karraskadiak ikus daitezke, besteak beste. ETC-prentsa

Barrera atzean utzita, ezkerretik doan pista nagusiak Ordunte ibaiaren ondora eramango gaitu **amezti** ederrean zeharreko paseo goxoan. ETC-prentsa

Europako **ameztirik** handiena dauka, Izki ibaiaren ertzean. ETC-prentsa

Denboraren poderioz sorrarazitako harrizko arku galanta ikusiko dugu Izki natur parkeko **ameztiaren** babesean. ETC-prentsa

Ezbairik gabe, parke honetako harri bitxia, 3.500 hektareatako **ameztia** da, berau baita, zuhaitz espezie honek Europan eratzen duen basorik handiena. ETC-prentsa

Ordunte mendiak eta mendi ertainak, berriz, pagadi eta **ameztien** domeinu lirateke, nahiz eta gailur altuenetan, lurzoru meheak eta klima gogorrak eraginda, larre eta zohikaztegiak hedatuko ziratekeen. ETC-zientzia, zuzenbidea

- Aurrekoez gain, hauek ere topa daitezke: **ameztiak** mendi-mazela eta hareharriz osatutako muinoetan, pagadiak ibar eta sakan itzaltsuetan, haltzadiak erreka-ertzetan, eta urkidiak, kareharrizko arroiletako baso mistoak eta haritz kandugabeko hariztiak kokaleku zehatzetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jatorrizko basoen zati handi batek bere horretan dirau; batez ere, pagadi kaltzikolaz eta azidofiloz eta **ameztiz** osatutakoak. ETC-entziklopedia

Euskal Herrian, berriz, eurosiberiar eskualdean eskuarki ugaltzen da, pagadietan, hariztietan, **ameztietan** eta oihan mistoetan. ETC-entziklopedia

Gizakia agertu aurretik, udalerrian **ameztiak** eta zumelak nagusi ziren. **Ameztiak** gunerik hezeenetan ziren. ETC-entziklopedia

---

amhara *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi)* *iz* Etiopia iparraldeko eta erdialdeko goi-lautadan bizi den talde etnikoa.

Eta somaliarren ikuspuntutik erakargarria, itxura garbirik gabeko giza populaziotzat aurkeztea oromoak, material aurre-etniko gordin bat balitz bezala, politika-zortez eta erlijio-bihurreraz **amhara** edo somaliar bilakatzeko zain. ETC-literatura, saiakera

Amhara, oromo eta tigrin etniak iparraldean bizi dira, eta haien arteko borrokak ohikoak dira. ETC-prentsa

Amhara eta oromo alderdi banak ere osatzen dute koalizio hori, baina oposizioa kexu da, funtsean tigre iparraldeko etniak kontrolatzen duelakoan gobernua. ETC-prentsa

Oromo da Etiopiako etnia nagusia -herritarren %34 inguru-, eta **amhara** da bigarrena kopuruari dagokionez: %27. ETC-prentsa

Etiopian, hiru talde etniko nagusiak tentsiozko botere-lehian bizi dira elkarrekin: 25 urtez agintean egon diren tigrayak, behinolako elite kulturala izandako **amharak** eta, populazioz gehiengoa izan arren, aurtengo maiatzera arte sekula agintean egon ez diren oromoak. ETC-prentsa

---

amharera *iz* Etiopian mintzatzen den hizkuntza.

A: lehenengo bokala da, alfabeto guztietako lehenengo letra; **amhareran** edo abisinieran, berriz, hamahirugarren letra da, eta errunikoan hamargarrena... Lopez de Arana

---

ami

1 ***mon ami*** deiki bezala eta txantxetan-edo erabiltzen den hitza.

Erantzun guztiak dira zilegi, **mon ami**. Anjel Lertxundi

Euskaldunarentzat, A-tik B-ra ez dagoelako beti B-tik A-rako tarte bera, **mon ami(e)**! Iñigo Aranbarri

---

AMIA **1** *iz* diagnostikoa egiteko eta estrategiak erabakitzeko tresna, lau hitzez osatutako akronimoa (Ahulguneak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak).

Olasagastik ere ez du iritzi onik **AMIA** diagnosiaz. Berria - Kultura

Anjel Valdes Euskal Disketxeen Elkarteko lehendakariak egindako diagnostiko batetik abiatuta **AMIA** sistemaren bidez planak ateratako ondorioekin ados da, orokorrean. Berria - Kultura

2 ***AMIA analisi***

AMIA analisi sistemaren aplikazioaz ateratako ondorioek ez zuten ez koherentziarik, ez diskurtsorik. Berria - Kultura

3 ***AMIA matrize*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Egiten dira azterketa sakonak, egiten dira mila modutako inkestak, egiten dira **AMIA matrizeak**, egiten dira horiek guztiak eta bat gehiago. ETC-prentsa

EBPNren kasuan, dokumentuari heltzen badiogu, plangintzaren norabidea eta ekintzak zehazteko **AMIA matrize** bat erabili zen. ETC-literatura, saiakera

Horrela, ildo estrategikoen **AMIA matrize** hau genuke, 2.10 irudian ageri dena. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amiamoko **1** *iz* zikoina; koartza.

Talde ekologistako kideek **amiamoko** edo zikoina zuriek egindako habia bat kendu zuten joan den astelehenean Zarrakazteluko udaletxeko teilatutik, herriko etxeko agintariek eskatuta. Berria - Euskal Herria

Jauregi horretatik gora, haren gain guztiak betetzen zituzten minareteen muturretan, lautadari itzala ematen zioten adar garaien artean, **amiamoko** bezatuak pilatzen ziren ehunka. Karlos Zabala

402 **amiamoko** beltz kondatu dira, jaz baino gutixago haatik. Herria

Haurrari jaioberriak **amiamokoak** dakartzala esaten diogularik, funtsezko egia adieraziko diogu apika, metaforaz besterik ez bada ere. Markos Zapiain

Otsail edo martxo aldera errunaldia gertatzen da, eta uztailaren bukaeran habia uzten dute **amiamokoek**, neguan itzultzeko. Berria - Euskal Herria

-Burioak, **amiamokoak**, ez dakit zer besterik. Txillardegi

2 ***amiamoko beltz***

Bertzalde, 402 **amiamoko beltz** kondatu dira, jaz baino gutixago haatik (2002 an, 434). Herria

3 ***amiamoko zuri***

Amiamoko zuria . Berria - Gaiak

---

amianto **1** *iz* kaltzio eta magnesio silikatoz osaturiko minerala, zuntz malguzko egituraketak eta ezin sutuzkoa izateak ezugarritzen dutena.

Amiantoa okerrago erauzten da euriak bustitzen duenean. Juan Garzia

Amiantoak ur pixka bat galtzen zuen 150°C-ra, gero itxuraz aldatzeke zirauen 800°C-ra arte. Juan Garzia

Konponbidea betiko lekuan dagoela jakinik, elkarrizketan eta herri honen borondatearen errespetuan, **amiantozko** jantziak janzten hasiak gara sutea geratu bitarte. Hasier Etxeberria

Congo handik herrenka aldendu zenean, euren artean isiltasuna erori zen, antzoki bateko **amiantozko** oihala bailitzan. Lopez de Arana

Ke-lainoak hasten dira **amiantozko** hodiz egindako kebidetik gora. Oskar Arana

2 irud/hed

Harrizko maitasun horretatik, eta **amiantozko** bakardade haietatik, beste gau luze haietako batzuetan uharteak eta askatasuna aipu duten bi istorio jaio ziren. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
amiantoa dagoen (3); **amiantoz beteriko** (3); **dozenaka tona amianto** (3); **tona amianto** (6)

---

amida *(corpusean ez dago; ETCn **75** agerraldi) iz* azido karboxilikoa amoniakoarekin edo amina batekin konbinatzean eratzen den konposatu organikoa.

Amidak konposatu organikoak dira, naturan ugariak. Izan ere, proteinak dira **amida** garrantzitsuenak. Proteinen propietateak dituzten zenbait **amida** sintetiko erabiltzen dira, hala nola nylona, zuntzak ekoizteko erabiltzen den poliamida sintetikoa, armiarma-sarean agertzen den proteinaren antzeko propietateak dituena. ETC-entziklopedia

Karbonilo talde bati lotutako nitrogeno atomo bat duten konposatuak, berriz, **amidak** dira. ETC-entziklopedia

Azetamida azido azetikoaren **amida** da, amonio azetatoa deskonposatuz lortzen dena. ETC-entziklopedia

Amidei, eterrei eta alkoholei buruzko azterketak egin zituen eta airearen, uraren eta karbonoa erretzean askatzen duen gasaren osagaiak eta osagai horiek zein proportziotan konbinatuak zeuden aurkitu zuen. ETC-entziklopedia

Eta, gainera, Hugginsek ez zuen jo **amida** multzoak planarrak zirenik, multzo horien planartasuna 1932tik onartu bada ere, eta peptido bakunen kristalen egituraren zehaztapen zenbaitek egiaztatu badute ere gure laborategian. ETC-literatura, saiakera

Honako konposatu hauek dituzte, besteak beste, karbonilo taldeak: zetonek, aldehidoek, azidoek, **amidek** eta karbonatoek. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gehienak organikoak dira (azukreak, aldehidoak, glikolak, zetonak, **amidak**, esterrak, aminoazidoak eta abar), eta guztiek dituzte bi erradikal hurbil bata bestetik; protoi-hartzailea bata, eta protoi-emailea bestea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esterrak, laktonak, **amidak**, imidak eta oximak daudenean gertatzen da, gehienbat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Belarren aurkakoen artean gehien erabiltzen direnak konposatu fenoxikoak, konposatu dipiridilikoak, **amidak**, dinitroanilinak, ureak, triazinak, sulfonilureak edo aminoazidoetatik ekoitzitakoak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Filmei dagokienez, konkretuki HK9 filmen kasuan, II **amidarekin** erlazionatutako banda frekuentzia altuetara desplazatu zen keratina hidrolizatua gehitzerakoan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amigdala **1** *iz* faringe aldean dauden almendra itxurako bi organo linfatikoetako bakoitza.

Garuneko "emozio-zirkuituen" ahuleziaz duen ideiari atxikitzen zaio, ordea, eta berekiko dauka zirkuitu horiek, filogenetikoki zaharrak diren garuneko emozio-aldeak - **amigdala** eta sistema linbikoa- baliagarriak izan daitezkeela kortex prefrontaleko alde garatu berriekin eta gizakiaren ezaugarri espezifikoak dituzten aldeekin lotzeko. Xabier Olarra

TAURUSen egingo du bere txangoa: eztarri inguru hori dena du bere eraginpean, laringea, tiroides, matrailezurra, hortz-haginak, **amigdalak** eta entzumena, belarri-bideetan. Pello Zabala

-Hiperazidotasun pixka bat dauka urdailean eta **amigdalak** gorrituta -azaldu zuen sendagileak, besoak zabalduz-. Koldo Biguri

Erabateko fedez sinisten zuelako alkondararen azpian ur tantak gelditzen baziren gorputz barrura sartuko zitzaizkiola eta, guztiz argi ez dagoen prozesu baten bitartez, eztarriraino igo eta **amigdalak** puztuko zizkiotela. Unai Elorriaga

Amigdalak giltzaz ixten ditu hipokanpoko artxiboak. Xabier Olarra

Gauzak txukun egitera, beraz, gertakarien ordena logikoari jarraitu beharko zioan Ripodasek: lehenbizi zuek garbitu, eta gerokoz utzi Soriaren **amigdalak** anestesiarik gabe erauztea. Aingeru Epaltza

2 *hed*

27 kokainazaleren burmuina ikertu du Bostongo sendagile talde batek eta **amigdala** deituriko atala kontsumitzaile ez direnek baino txikiagoa dutela ikusi dute. Berria - Gaiak

Amigdala ezinbestekoa da gure ekintzen ondorioak aurretik hausnartzeko prozesuan. Berria - Gaiak

3 ***amigdala faringeo*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Nasofaringeko goiko eta atzeko hormen artean dagoen nodulu linfatikoen kontzentrazioak **amigdala faringeo** izena du (digestio-aparatuari dagokion gaian aztertuko da). ETC-zientzia, zuzenbidea

4 ***amigdala gorputz*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Amigdala gorputza lobulu tenporalean sakonean dauden neuronen nukleoak dira. Sistema linbikoaren parte da eta erreakzio emozionalen prozesamendu eta gordelekuan ezinbestekoa. ETC-entziklopedia

5 ***faringeko amigdala*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

- **Faringeko amigdalak** edo adenoideoak, faringearen goialdean agertzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adibidez, **faringeko amigdalak** eta hesteko Peyer-en plakak egitura anatomiko gisa zehaztutako bi mukosa-ehun linfoide dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, gongoil linfatikoen antzeko zeregina dute. Aipagarriak dira talde honetan **faringeko amigdalak** eta ahosabaiko amigdala. ETC-entziklopedia

---

amigdalitiko *izond* amigdalei dagokiena.

Tuberkulosi **amigdalitikoak** sekula ez baitzion paseatzea galarazi. Bego Montorio

---

amigdalitis *iz* amigdalen hantura.

Fran Yestek ez zuen atzo entrenatu Lezaman, **amigdalitisa** baitu. Berria - Kirola

Phonak taldeko Fabrizio Guidik ere **amigdalitisak** jota dago eta ez dakite garaiz osatuko den. Berria - Kirola

Prietori ez zaio oraindik **amigdalitisa** osatu, eta De Paulak min du orkatilan. Berria - Kirola

Errusiarraren ordezko behar zuena ere, Xabi Prieto, **amigdalitisak** jota ibili zen joan den astean eta hiruzpalau kilo galdu ditu gaixotasunaren ondorioz, astean zehar normaltasunez entrenatu badu ere. Berria - Kirola

---

amigo deiki bezala eta txantxetan-edo erabiltzen den hitza.

-Hau bukatu duk, **amigo** -esan zidan itsasontziaren eskifaiako zaharrenak. Hasier Etxeberria

"Et, ez nahastu, ez nahastu gauzak, **amigo**. Karlos Linazasoro

Kontuz, **amigo**! Karlos Linazasoro

---

amikatu, amika(tu), amikatzen du *ad* (goseak) hiltzeko zorian utzi.

Joanes goseak **amikatua** zegoen, bertze guziak bezala, funtsean. Eneko Bidegain

Eta izan ere bietara gidatu zuen, zeren hamar egunetan galdurik, goseak **amikaturik** eta txarrenaren esperoan ibili ostean, txoriak harresi batera gidatu baitzuen. Patxi Zubizarreta

Presaka ibili gara, goseak **amikatuak** egongo bagina bezala, kezkatuak euskal eskolarik ez zenez gero, ahalik eta gauza gehien euskaraz irakatsi behar dela pentsatuz eta eskatuz. Pello Salaburu

Elemeniaka, oro begi belarri, mihi, aho eta zintzur, leher eta zapart sekula fingabeko otoruntza eta edasian, goseak **amikatuak** txitxipapetan. Jose Angel Irigaray

Banatze hori, jendeak jatekoaren bila heldu ziren tokian egiten zen -goseak **amikatuen** tokia, jateko ebastera heldu zirenen tokia-. Marzel Etxehandi

Gehiago dena, errana du argi eta garbi Georges Bush presidentak bere egia: Europaren faltaz daudela, OGM horietarik ez nahiz, Hegoaldeko hanbat herri gosez **amikatuak**. Herria

Raimundo Silvak etxera itzultzea erabaki du, zakur gose **amikatu** batek muzin egingo ez dion zerbaiten bila. Jon Alonso

Esan ezin ahalako aberastasunak topatu zituen han, baina haietatik gutxi batzuk harturik, goseak **amikatzen** baitzegoen, lapiko handira jo zuen bere sabela berdintzera. Patxi Zubizarreta

· Hango jende gaixoak horiek oro pekatu behar, aintzindari atrebitu eta **amikatu** batzuen gatik! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **goseak amikatua** (3)
> **goseak amikatuak** (3)

---

amikuztar *iz/izond/izlag* Amikuzekoa, Amikuzeri dagokiona; Amikuzeko biztanlea.

Bi **amikuztar** izan ezik, denak bortuz haraindikoak ziren, Migelekin batean gerlan ibiliak: bi erronkariar, baztandar bat, ameskoar bat eta Erriberri aldeko bertze bat. Aingeru Epaltza

Huna beraz hemen **amikuztarrak** goiti doatzila, senpertar haueri irabaziz. Herria

Amikuztarrek airez aire aintzinean hasirik pasaia txarra ukan dute baina ederki erakutsi beren biperra ere ondarrean. Herria

Haatik, izan dituzte **amikuztarrek** berdindurik eta beren lema eta abileziari esker lerroan egin dituzte azken ponduak. Herria

Junior gazteen finala **amikuztarrek** beretu dute xapelarekin, zuraidarrak garaiturik astelehen aratsean. Herria

Amikuztarrek ihes egiten zioten, edo erdeinuz so egiten. Aingeru Epaltza

Larreak eta Arburuak moztu zuten **amikuztarren** eta garaztarren arteko guduka. Aingeru Epaltza

· Gazte azkarra, pilotaria, **amikuztar** seme horri . Herria

Non Joanes Garrüzeko, zaldun gazte **amikuztarra** ? Aingeru Epaltza

Aintzin-partidan Irume-Etchegaray **amikuztar** gazteek joak zituzten Sarako Errandonea anaien parea 40-38. Herria

Ongi etorri beroena **Amikuztar** apez huni! Herria

Ari baitira **amikuztar** erakasleak beti gazte horien trebatzen, izan diten Amulet, Lapouble, Larramendy, Thicoype, Caset eta beste zenbait, kargudunak eta tokiko enpresa batzu gainerat. Herria

---

amil **1** *iz* amildegia.

Burdinorizko teilak **amilean** hondoratu ziren. Juan Garzia

Eta, hala, **amilera** zihoan aldapara begira-begira geratu zen Extul, Dan-i eta niri helduta. Koro Navarro

2 ***amilean*** *adlag* amilka, amilduz.

Mundua hondamendira zihoan **amilean**, eta nire inguruan ez zen deus gertatzen. Juan Garzia

Ez zuen ezagutzen nire alda-maldaka ibiltze oinazez bete hura, noiz zeru goian (ikasketa- edo kirol-arrakasta bat, adiskidantza berri bat, maitasun baldar bezain iheskor bat), noiz infernura **amilean** (lauko nota bat, damu-arrangura bat, zerbaitetan gutxiago zarela bat-batean argitze bat, zeina aldiro betiereko, behin betiko baitzirudien). Juan Garzia

Hortik pasatzen da espiralezko eskailera, **amilean** nahiz goraka urrunean galduz. Juan Garzia

Burdinorizko teilak **amilean** hondoratu ziren. Juan Garzia

---

amila *iz* jaka.

Hamar gizon zeuden itsasontziaren bizkarrean, oin hutsik, atorra zuriz eta galtza beltzez jantziak hamarrak, bat izan ezik, atorraren gainean **amila** urdina baitzeraman. Felipe Juaristi

Amila gorria lepoan irekitzen zen, atorra zuriaren lepo hegal landu eta dotore estanpatuak agerian utziz. Felipe Juaristi

Lebita bat gorrimina orkatiletaraino iristen zitzaiona, azpian **amila** bat beltza eta atorra bat zuria. Felipe Juaristi

---

amiladun *iz/izlag* amila daraman pertsona; amila duena. ik **jakadun**.

Hark eskuz agur keinua egin ondoren, paperezko agiri bat eman zion, ofiziala eta zigilduna, eta **amiladun** gizonak agurtu egin zuen soldaduen buru egiten zuena, buru-makurraldi batez, eta, gero, hari bizkar emanda, zain zeuden gizon-emakumeengana jo zuen. Felipe Juaristi

Gizon adintsuak **amiladunari** bere esku argala, galburuak bezalako hatzen jauregia, eskaini zion eta **amiladun** gizonak adintsuari bere esku luzea, itsasoaren lagun den ibaiarena bezainbat, emanez, eskaileretan gora igotzera gonbidatu zuen. Felipe Juaristi

---

amilami *iz*

Ilea urre koloreko, inori kalte egiten ez dakiten lamiak dira **amilamiak**. Anjel Lertxundi

Inork ez daki, ordea, **amilamiak** non ezkutatzen diren, eta, batez ere, edabea non ezkutatzen duten. Anjel Lertxundi

Trepeta eta asmazio zoragarri askoren jabe omen dira **amilamiak**: irina oparo ematen duen galbahe hutsarena; malkoak marrubi bihurtzen dituen ukendu batena; ibai ondoko harriak amuarrain eta basoko zotzak eper bihurtzen dituen eraztun batena... Gizakiak edozer egingo luke sekretu horien jabe egiteagatik; ez da, bada, harritzekoa **amilamiek** gizakiari dioten beldurra. Anjel Lertxundi

---

amilarazi, amilaraz(i), amilarazten **1** du *ad* amiltzera behartu.

Itxura guztien arabera, gizakiren batek zakurrak hartu eta ardiak **amilarazi** zituen. Gotzon Garate

Zugandik urrun bizi beharraren hildurara ni **amilarazi** izanari ez askietsirik, horrez gainera trufa egiten diezu, dagoeneko, zure eraginez, deusik sentiarazten ez didatela badakizun sentimenduei. Jon Muñoz

Barry jaunak zehatz-mehatz adierazi zuen zein alturatatik **amilarazi** behar ziren gaizkileak, beren pisuaren arabera, urkamendua txukuna, garbia eta batez ere azkarra eta erabakigarria izan zedin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Une jakin batean, edozeinetan, nahiz nik, kontalariak, apeta hutsez 1840. urtea izatea erabaki dudan, aitzur-kolpe batek erauzi eta gisu laberantz abian jarri zuen, mudatzen diren gauzen mundura **amilaraziz**. Juan Garzia

Begira, horra haizea bera, izadian den indarrik handiena, jendea lurrera botatzen duena, etxeak eraisten dituena, zuhaitzak erauzten dituena, itsasoa malkorrak **amilarazten** dituzten mendi bihurturik jaikiarazten duena eta itsasontziak uharrietara jaurtitzen dituena. Josu Zabaleta

Labirinto zirkular horietatik konprobazio bitxi batek salbatzen du, eta bestelako labirinto are antzemangaitzago batzuetan **amilarazten**: haren heriotzako egunean Fergus Kilpatrick-ekin solastatu zen eskale baten hitzak Shakespearek erabili zituen, aldeak alde, Macbeth trajedian. Juan Garzia

Izpi-makolak oro hautsi haren gurpilari, eta **amilarazi** abatza zeruko muinoan behera eta infernu zuloraino! Juan Garzia

2 irud/hed

Artikuluaren amaieran, *Le Dépêche du Midi*-k onartu egiten du agentzia ohar okerra erabili zuela eta hortik laidoa, infamian **amilarazi** zuela Malika. Mutil gaixoa promes zoro batean **amilarazi** badute, esku tinkoz eta lehenbailehen hura handik ateratzea dun nire eginbeharra. Iñigo Aranbarri

Zugandik urrun bizi beharraren hildurara ni **amilarazi** izanari ez askietsirik, horrez gainera trufa egiten diezu, dagoeneko, zure eraginez, deusik sentiarazten ez didatela badakizun sentimenduei. Jon Muñoz

Horiek egia bezala predikatu eta horien bidez asko eta asko itsutasunaren zulora **amilarazi** baitzituzten. Askoren artean

---

amilasa *(corpusean ez dago; ETCn **196** agerraldi)* *iz* almidoia eta gisako konposatuak hidrolizatzeko gauza den entzima.

Txistua bota, eta listuko **amilasa** entzima almidoia digeritzen eta azukreak jaregiten hasiko da. ETC-literatura, saiakera

Batzuek diote 1833an sortu zela, Anselme Payen kimikariak **amilasa** deritzon lehenengo entzima aurkitu zuenean. ETC-prentsa

Adibidez almidoia (karbohidrato luze bat) unitate txikiagotan apurtzen laguntzen duen entzima **amilasa** izango da, eta zelulosa (beste karbohidrato luzea, belarrean dagoena) degradatzen lagunduko duena zelulasa izango da. ETC-prentsa

Eguerdian, proteinak eta almidoia digeritzeko proteasak eta **amilasak** jariatzen dituenez, oraintxe jan behar dira fekuladunak, haragi eta arrainak, muskuluak eta zelula-barneak sendotzeko. ETC-prentsa

Adibidez, genetikoki eraldatutako **amilasa** erabiliz sortutako okin produktuak eta pentsu transgenikoekin elikatutako animalia ez transgenikoetatik eratorritako elikagaiak (okela, esnekiak...). ETC-zientzia, zuzenbidea

Zelula serosoen ur-jariakinak zenbait entzima mota ditu; **amilasa**, lisozima eta peroxidasa barne. ETC-zientzia, zuzenbidea

Listuaren **amilasa** izan zen erkaketa hori egin zuten ikertzaileek aukeratu zuten entzima. ETC-zientzia, zuzenbidea

Amilasa listu-entzimak, adibidez, ahoan du bere jardun-eremua, almidoia puskatu eta azukre digerigarri bihurtzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ugaztun eta hegazti askoren listuak **amilasa** entzima izaten du, baina beste animalia multzo batzuek ez dute entzima hori. ETC-entziklopedia

Erabilienak, **amilasa**, proteasa, zelulasa, laktasa eta lipasa duten konplexuak dira. ETC-entziklopedia

Gizakiaren listuko **amilasa** entzimak ez dira gai (1? 2) lotura hidrolisatzeko eta inulinak digestio aparatu guztia zeharkatzen du. ETC-entziklopedia

---

amilbide *iz* amiltzeko bidea.

Horrenbestez, bere fruitua jaso zuen ene aholkuak; eta Hamlet printzea, gaitzetsirik -hitz laburretan esateko- tristurara amildu zen, eta gero baraura, hurrena lorik ezera, handik ahuleziara, hortik txolintasunera, eta, hala, **amilbide** horretan, orain datzan eta guztiok dolu-penetan gauzkan eromen eldarniotsura. Juan Garzia

Eta edale jendea beti aiher izaten den **amilbide** baratz horietako batera etsirik -edaten ez dutenek ez dute inoiz ulertuko! Matías Mujika

---

amilburu *iz* amildegiaren ertza; erraz amiltzeko pendiz ia bertikala; lur azalean gertatzen den horma moduko ebaki sakona. ik **amiltoki**.

Gu geunden **amilburuaren** pare-parean, itsas barnean bost edo sei milia harantzago, uharte txiki bat ikusten zen, itxura mortukoa. Koro Navarro

Ezagutzen dituzue itsasadarraren babesa utzi eta ortzi-muga zabalera, ekaitzen legera aurreratzen diren **amilburu** zorrotzak eta urazalean agertu gabe itsaspea itsutu eta nabigaziorako heriotza tranpa maltzurrak osatzen dituzten hondar pila menditsuak. Pako Aristi

Amilburu ertzaren gainetik herrestan diharduten arrantza-ontziei lana galarazteko. Edorta Agirre

---

amildegi **1** *iz* erraz amiltzeko pendiz ia bertikala; lurrazalean gertatzen den horma moduko ebaki sakona.

Beltza, garaia eta harritsua, Heriotzaren **Amildegia** hantxe zegoen oraindik. Agustin Otsoa

Anbotoko **amildegian** leize ugari dago. Anjel Lertxundi

Berdin zion Zugarramurdiko harpeak, Kakuetako **amildegiak** edo San Martin Harriaren inguruak izan. Joxean Agirre

Ez, ez dut gogoko, **amildegi** baten ertzean egotea bezala iruditzen zait. Migel Angel Mintegi

Batzuetan autoa **amildegi** baten ertzetik doala iruditzen zait, eta autotik atera eta neure burua **amildegi** hartan behera botatzea pentsatzen dut, izutu egiten bainau jende hark emango digun heriotzan pentsatzeak. Bernardo Atxaga

Amildegiaren ertzera hurbiltzen ari gara, esperantza eta etsipena bateratzen dituen ertzera. Agustin Otsoa

Zilipurdika, haitz puntetan eta harkaitzetan joaz, azkenean **amildegiaren** sakoneneraino erori zen, erabat zatikatua eta apurtua, zirudienez. Askoren artean

Amildegiaren aho beltza, alabaina, ezin izan zuen geroztik ahaztu eta burua galdu zuen. Joxean Agirre

Hori gertatzen da **amildegiaren** aurreko zorabioari bezalako beldurra diogulako denbora libreak berarekin dakarren hutsuneari. Anjel Lertxundi

Hala ere, hirurogeita sei urte geroago, arratsetan, **amildegitik** heltzen diren uluak entzun ditzake. Eider Rodriguez

Gabik begiradarekin segitu dio zigarrokinari **amildegitik** behera, eta lagunekin gogoratu da. Jokin Muñoz

Deabruak orduan San Frantziskori ezin egin izan ziona, **amildegitik** behera bota alegia, geroago, San Frantzisko hil eta handik denbora puska batera, haren anaia maite eta jainkozale bati egin zion. Askoren artean

Miarritzek zumarrak paratuko ditu bere muinoetan, ranpak dunetan, eskailerak **amildegietan**. Koldo Izagirre

Ezin izan zuen bihurgune madarikatu hura ikusi, eta **amildegian** behera erori zen autoa. Aritz Gorrotxategi

Izua ematen zuen, horregatik, **amildegian** behera begiratzeak. Askoren artean

Amesgaizto batetik ateratako bi harroputz ziren Brazell eta Skully; ahaztu egin nituen Jean eta biok **amildegian** gora joan ginenean. Koro Navarro

Ezin zen eroso jarri eta eguzkitan lasai egon, eta etzan eta jiratu **amildegitik** behera itsasora begiratzera. Koro Navarro

Amildegira jauzi egin beharra. Migel Angel Mintegi

Aitor dezatela eredu hark ekarri duela oraingo mixeria hau; gailurraren ostean **amildegia** dagoela. Joxerra Garzia

Ondo gidatzen du, autoa Mercedes handi bat da, nire eskuin aldean Istriako itsasoaren panoramika ederrak daude, baina nik **amildegiari** begiratzen diot, ez itsasoari. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hemen, granitozko **amildegi** altuak, ertz berezi-berezikoak; han, mendi zintzur basak, errekasto zalapartatsuen pasabideak. Karlos Zabala

Ene burua, **amildegi** piko baten aurrean. Anjel Lertxundi

Bideak ekialdeko mendien ingurua zeharkatzen zuen, eta **amildegi** estu batean sartzen zen. Agustin Otsoa

Oraindik **amildegi** sakon bat igaro behar zuten ihes egin nahi bazuten. Askoren artean

Orduan bastioitik **amildegi** sakonera bota zuen bere burua. Fernando Rey

Alpujarretako mendi haietatik, berriz, etxetik hiruzpalau ordura zegoen mendi bat zuen kuttun, hirurehun bat metroko **amildegi** harkaiztsu batek inguratzen zuena eta, behetik begiratuta, gaztelu erraldoi baten itxura zuena. Joan Mari Irigoien

Baso txiki iluna eta sakana eta **amildegi** harritsuak baitziren alde hartan, eta atzean Ephel Dúathen aldapa luze eta zorrotzak ageri ziren. Agustin Otsoa

Eguzkia gordetzen ari zen, **amildegi** galdu horietan marmar sakonean nabari ziren erreketarik gora zetorren lainoa. Koldo Izagirre

Bakar-bakarrik daude Erniok buelta guztian dituen malkar-zulo eta **amildegi** bortitzen ertzean. Pako Aristi

Haien azpian, neurri gabeko zulo batean, **amildegi** beldurgarri baten hondoan, Loëche ikusi zuten, etxeek goitik Gemmik ixten eta burutzen duen eta behetik Rodanok zabaltzen duen arrakala erraldoi horretan botatako hondar bikorrak ziruditela. Josu Zabaleta

Mendiak **amildegi** izugarri sakona zuen, harkaitz zartatu eta gogorrak ageri ziren han eta hemen, eta harkaitzetatik tamaina askotako haitz punta zorrotzak ateratzen ziren. Askoren artean

Plaza erraldoi horretan dena zegoen -lurra, bizitza eta jendea-, eta begirada bakar batekin ikusten zen hori guztia, den-dena, amaieraraino, heriotzaren **amildegi** misteriotsuraino. Jose Morales

Zeure ama bera ere infernuko suzko **amildegian** higatu beharko zen. Joseba Sarrionandia

Itzelezko **amildegiak** izanen dituzue beraz izotzaren azpian. Joseba Sarrionandia

3 (hitz elkartuetan)

Baina asteburuetakoa denborapasa soiltzat jotzen nuen; sartuta nengoen **amildegi**-bidean guztiz erroturikoa, ados, baina denborapasa, azken batean. Iban Zaldua

Amildegi ertzean sentitzen naiz. Joseba Sarrionandia

Amildegi ertzean gizona ageri da, zutik. Imanol Zurutuza

Beste ezer esan orduko, arbelaren goialdean eskuinaldera **amildegi** ertzean idazten ari balitz bezala izkiriatu zuen: [...]. Joseba Sarrionandia

Amildegi ertzetik hartu eta leku seguruan jarri zutela sentitzen zuen. Anton Garikano

4 irud/hed

Kalkuluaren bitartez irudimena gainditzen duen errealitate batera iristen den fisikariaren eta ebidentzia matematikoak sentsuen intuizioaren datuak gezurtatzen dituenekoerrealitate bat atzemateko saiatzen den publiko arruntaren artean, **amildegi** bat sortu da. Juan Garzia

Leirerekin izan zuen harremanak ez zuen hilabete batzuk baino gehiago iraun, baina aski izan zen gu bion artean **amildegi** bat sortzeko. Juan Kruz Igerabide

Gaur egun, Euskal Herriko eta Espainiako herrien artean **amildegi** bat dago; inkomunikazioaren **amildegia**. Txema Ramirez de la Piscina

Ez zitzaidan axola lehendabiziko olio tantak mahai gainera irristatzen zirenean eta mahaitik lurrera gero, bai bainekien, nahiz eta begietatik sua zeriola begiratu, ez zuela deus esaterik, **amildegia** irekita zegoelako bion artean. Ramon Saizarbitoria

Eta ea benetan den hain sakona ahizparengandik bereizten duen **amildegia**, ahizpa bere etxe aristokratikoko hormen artean hesiturik bizi baita, iristezin. Jose Morales

Hala ere **amildegi** bat dago egunen batean hilko garela jakitearen eta begi aurrean guztiaren amaiera ikustearen artean, pelotoia armak destatuz. Jon Alonso

Bizitza arrasto bat da, klarionaz egindako marra estu zuri bat, eta geu orekari hauskorrak besterik ez gara; behean, zain, **amildegia** dago edo itsas sakona edo basamortua edo zauriaren izena; eta inor ez da libratzen, lagun, deskuidu txiki bat izatetik. Karlos Linazasoro

Hala, bada, herri xehearen eta intelektualen arteko etena **amildegi** bihurtu zen aurki, batez ere intelektual bizkaitarren kasuan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ongi ohartzen zen ezen **amildegi** bat zegoela berak maite zuen gaztearen eta amesten zuen pertsonaiaren artean. Patxi Zubizarreta

Bere bigarren nobela izan zela uste dut gu bion artean **amildegia** zabaltzen hasi zena. Joxean Agirre

Etsipenak hesitutako **amildegi** hondogabe makurra irizten zion bizitzari. Patxi Zubizarreta

Ihes egin behar zaio beti nabarmenkeriari, ez baita **amildegi** polit bat besterik. Askoren artean

Gai honi buruz erretorika eta praktika neoliberalaren artean dagoen **amildegia** handia da oso. Iñaki Heras

Handiak izan ziren iragan mendeko aldaketa sozial eta politikoak; lazgarriak oso bai bi mundu gerrateak bai gure gerra zibila ere; sakonera izugarrikoa, gerra horien ondorengo **amildegi** espirituala. Anjel Lertxundi

Etorri zu ere, zerbitzari, makurtu eta ikusi giza arimaren **amildegi** beltza. Lopez de Arana

Badirudi, jendetasunaren maila, nor den nor, nor den zer, zer den zer, oinarri-oinarrizko bereizketa horiek egiteko behar den jendetasun eta sen arrunta **amildegian** beheiti bota dugula, zenternaren zolaraino, han ito dadin ur uher gazien artean. Pello Salaburu

Zeruaren **amildegian** berdeak ikusten zaizkit begiak, esan ohi zuen William Lang paraxutistak, hegazkinetik jauzi egin aurretik. Karlos Linazasoro

Amildegian nengoen, ordea, bizitzeko gogoa itzalita. Joan Mari Irigoien

Behin eta berriro urruntze ahaleginetan saiatu ala, are eta sakonago jausten nintzen **amildegian**. Imanol Unzurrunzaga

Handik hara, aitak arrasto bat egin zuen bere bizitzan, ahanzturaren **amildegiaren** ertzean. Juan Kruz Igerabide

Hotzikara sentitu nuen, eta gerraren **amildegirantz** ari ginela ulertu. Txillardegi

Amildegiaren beherenean zegoela, lagun batek adoretua, zer eta ertzain sartzea erabaki zuen. Patxi Zubizarreta

Edozein modutara, errealitatetik utopiara bitarteko **amildegiaren** handiak zorroztu zion ziria koplariari. Anjel Lertxundi

Gauzen azken eramale gisa ezinbestean behar dugun baldintzatugabeko beharrezkotasuna giza arrazoimenaren egiazko **amildegia** da. Ibon Uribarri

Eta orain, biologikoki desagertzen ari baita generazio oso bat isiltasun **amildegiekin** barrenean diharduena, isiltasunera berrogei urtez bortxatuak izan baitira, eta diktatura bukatu ondoan ez baitira "kontuak zuritu". Ana Urkiza

Hala, munduaren **amildegitik** jaitsi eta hil behar izan zuena Denver izan zen, bestela guztiak hilko baitziren. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amildegi bat (17); **amildegi bat dago** (5); **amildegi batean** (10); **amildegi batean behera** (4); **amildegi batean erori** (3); **amildegi batek** (5); **amildegi baten** (18); **amildegi baten ertzean** (5); **amildegi baten gainean** (4); **amildegi batera** (5); **amildegi batetik** (17); **amildegi batetik behera** (5); **amildegi batetik erori** (3); **amildegi batetik erorita** (4); **amildegi batetik jausi** (3); **amildegi ertzean** (7); **amildegi ertzetik** (3); **amildegi eta** (3); **amildegi hartan** (3); **amildegi hartan behera** (3); **amildegi hori** (4); **amildegi ilun** (3); **amildegi izugarri** (4); **amildegi sakon** (6); **amildegia dago** (5); **amildegia zabaltzen** (4); **amildegian behera** (21); **amildegian ez** (3); **amildegiaren ertzean** (19); **amildegiaren ertzera** (5); **artean amildegi** (5); **artean amildegi bat** (3); **artean dagoen amildegia** (3); **arteko amildegia** (18); **autobus bat amildegi** (3); **bat amildegi** (3); **dagoen amildegi** (4); **dagoen amildegia** (3); **eta amildegi** (13); **eta amildegia** (4); **eta amildegian** (5); **eta amildegiaren** (3); **metroko amildegi** (13); **metroko amildegi batetik** (7); **pobreen arteko amildegia** (4); **zuen amildegiaren** (3)

---

amildegiratu, amildegira(tu), amildegiratzen da *ad* amildegira erori.

Gorputzak, ordea, behera egiteko joera du, **amildegiratzekoa**, eta indar gehien behar den unean gertatu ohi da beheititzea, etsiaren deia. Karlos Linazasoro

---

amildu, amil(du), amiltzen **1** da *ad* toki garai batetik behera erori.

Akazias Samarian zuen etxeko goiko gelako barandatik **amildu** zen eta larriki zauritu. Elizen arteko biblia

Dikea **amildu** da. Agustin Otsoa

Jo zuen turuta bigarren aingeruak, eta sutan dagoen mendi handi bat bezalako zerbait itsasora **amildu** zen: itsasoaren herena odol bihurtu zen. Faramirren itzulerarekin suspertu arren, etsipen sakonean **amildu** ziren berriro. Elizen arteko biblia

Berarekin batera, dorrea **amiltzean** askatu zen habe batek bular betean jota, morroi leiala ere hil zen, Jon Alonso

2 du *ad* toki garai batetik behera bota.

Eguna zabaltzean, urak ohiko lekura itzuli ziren eta egiptoarrek, ihesian, urekin tupust egin zuten: Jaunak itsas hondora **amildu** zituen egiptoarrak. Elizen arteko biblia

Judakoek beste hamar mila gizon bizirik harrapatu zituzten eta, harkaitz-tontorrera igoarazirik, **amildu** egin zituzten handik. Elizen arteko biblia

Eskua zure aurka luzatuko dut, harkaitzetatik **amilduko** zaitut eta errauts-mendi bihurtuko. Elizen arteko biblia

3 irud/hed

Oinak beruna bezain astunak zituela iruditu zitzaion atarian; eta, gainera, tupusteko itsutasuna **amildu** zen bere gainera. Agustin Otsoa

Begiek mendiarekin eta basamortuarekin topo egin zutenean, adorea gainbehera **amildu** zitzaion. Agustin Otsoa

Herio Leizera **amildu** dute zure harrokeria, zure harpa-soinuekin batera. Elizen arteko biblia

Joan den astean, Trichetek ziurtatu zuen dolarra **amiltzeak** ez ziola eragiten kezka handirik, eta euroa indartzeak ondorio onak ere bazituela. Berria - Ekonomia

amil *izond* amilarazten duena.

Orain nire bertsoei gogoaren eta arimaren izaera argitzea dagokiela uste dut eta Akerontearen beldur **amilgarri** hura erauztea, zeinak giza bizitza barren-barrenetik asaldatzen duen, dena heriotzaren beltzean bilduz, eta inolako atsegin garden eta garbirik izaten uzten ez duen. Xabier Amuriza

Zure niniketan neurekiko erasia irakurtzen dut, ez nazazula erantzun ments abandona, bestela bizi osoan so horren kezka putzu **amilgarri** gisa atxikiko dut, damuzko makila: mintza zakizkit oraino. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aintzirara amildu (3); **akzioak amildu** (4); **akzioak amildu egin** (3); **amildu aurretik** (3); **amildu egin; amildu eta** (16); **amildu eta hil** (3); **amildu ez** (4); **amildu nahi** (3); **amildu zituen** (5); **batean amildu** (3); **batera amildu** (8); **behera amildu** (24); **behera amildu eta** (3); **gainera amildu** (7); **hondora amildu** (3); **itsas hondora amildu** (3); **itsasora amildu** (3)

amilduko zela (3); **amilduko zen** (5); **behera amilduko** (4)

---

amilka **1** *adlag* amilduz bezala; kopuru handietan.

Halako ekaitza eta halako harri-jausia eragin zuen goiko Subasio menditik behera, ezen denbora luzean ez baitzen isildu **amilka** zetozen harrien burrunba. Askoren artean

Orduak **amilka** joan ziren, oldean, bat bera ere galduta geldi ez zedin. Iñaki Zabaleta

Anaia hau berekin zeraman aingeruak bultza egin zion eta **amilka** bota zuen amildegi hartan behera. Askoren artean

Zuhaitz enbor batek geldiarazi zuen azkenean, eta hari eskerrak ez ziren denak erori **amilka** bidetik kanpo. Karlos Zabala

Autoak ez zidan gehiago obeditu, eta, sekulako kolpe batez bide-bazterreko burdinazko hesia hautsirik, itsaslabarrean behera erori nintzen **amilka**. Anjel Lertxundi

Bai, **amilka** erortzen ziren denak, behera eta behera espazio amaigabean, argi itzel baterantz, eta ni ere amiltzen nintzen haiekin batera. Fernando Rey

Halakorik gertatu bitartean, ordea, adiskidetasunaren sentsazio argitsu haiek bizi nahi zituen ahalik osoen, **amilka-amilka** sentitzen zuen bihotzaren aringarri. Anjel Lertxundi

2 ***itzul-amilka***

Talde handietan-eta egin beharreko zilipurdi eta **itzul-amilkak** bezala, gorputz guztia minberatzen zait oroitze hutsarekin. Karlos Zabala

---

amilkari *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *izond* amilarazten duena.

Lurreko negu hotzenak, eta, ondoren, uda heze kiskalgarriak, bero erre bat zanpatu egiten zaituena bere milioika eltxoekin, hainbeste eltxo non elastikoak saltzen baitituzte bonba-hegazkin **amilkari** giza-hiltzaile horien irudiekin eta idazkun honekin: Minnesota Estatuko Hegaztia. ETC-literatura, saiakera

---

amilkatu, amilka(tu), amilkatzen du *ad* amilka erori.

Ondoko azpil batean, ahuntz gaztak ageri ziren, ume baten ukabilaren neurrikoak, gogorrak eta grisaxkak, akerrak, ahuntz taldea gidatzean, bide zidor harritsuen bihurguneetan biraka **amilkatzen** dituen harkoskorrak gogora zekartzatela. Karlos Zabala

---

amilketa *iz* amiltzea.

Larunbat-iganderako zegoen iragarrita **amilketa**, eta ez zuen ikuskizun hura ezerengatik galduko. Karlos Linazasoro

---

amilkor *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *izond* amiltzeko joera duena.

Urrunean, Pirinioetako elurrak ikus litezke; Pauetik aurrera egingo dira distiratsuen, nahiz eta gandu moduko batek biltzen dituen ibarrik **amilkorrenak.** ETC-literatura, saiakera

Zer egin ez jakinik gelditu naizen une **amilkorra** kontraste sadiko batek bete du: zuritasunaren azpian kiskalduraren belztasun pitzatua, zarakartua dakust. ETC-literatura, saiakera

---

amiloide **1** *iz* almidoiaren itxura edo izatasuna duen gai proteikoa.

Plaka edo **amiloide** kontzentrazio horiek inhibitzen dituen molekula bat garatu du Ameriketako Estatu Batuetako ikertzaile talde batek. Berria - Gaiak

Amiloide proteinen elkarrekintza eragotziko lukeen botika garatzea izan da ikertzaileen helburu nagusietako bat. Berria - Gaiak

Chauchanek esan du beta- **amiloideen** plaka haztea eragozten duen txerto bat garatu dutela. Berria - Gaiak

Beta- **amiloide** proteina gehitzean, neurona horiek hil egiten zirela ikusi zuten ikertzaileek. Berria - Gaiak

2 *izond* gai proteikoez mintzatuz, almidoiaren itxura edo izatasuna duena.

Tolesdura oker horrek zuntz **amiloideak** sortzen ditu. Berria - Gaiak

Alzheimerra eragiten duten plaketa toxiko **amiloideak** suntsitzen dituen tratamendu berri bat aurkeztu zuten atzo, Kaliforniako Unibertsitatean (AEB). Berria - Gaiak

CAA Garuneko Angiopatia **Amiloidea** zuela ohartu ziren, baina, halarik ere odol zirkulazioa errazteko botikak eman zizkioten. Berria - Mundua

---

amilotx *(corpusean ez dago; ETCn **194** agerraldi)* **1** *iz* Parus generoko hegazti txikia *(Parus sp.)*.

M. losintxariak, **amilotxak** emea limurtzeko zer txistu jo badakienak, beste emakume batzuei so egiteko ere baditu begiak.[ETC-literatura, saiakera¬Rosa Luxemburg, Lorea Agirre, Elkar, 2000]Nire hilarriaren gainean bi hitz baino ez dira egongo: txio-txio, **amilotxaren** kantua. ETC-literatura, saiakera

Txori ttiki bat zirudien, **amilotx** ahul bixia. ETC-literatura, saiakera

-Amilotxa ere hartu zinan bere kuku-habian Inaxiok.[ETC-prentsa¬Berria, 2008-07-19]Haritzalde elkarteak Donostiako Ametzagaña mendian kaskabeltz eta

amilotxentzako kutxa-habiak dauzka jarrita. ETC-literatura, saiakera

Zozoa, txantxangorria, kaskabeltzak, mikak, **amilotx**, araba-zozoak, buztanikarak... horiek guztiak Iruñean bertan egiten dute habia, eta nahiko errazak dira ikusteko... hortxe bertan dago kaskabeltz bat, adibidez, banku horren azpian, eta besteak ere ziur ikusiko ditugula. ETC-prentsa

Kaskabeltzek, **amilotxek**, gerri-txoriek, garrapoek, erregetxoek, txioek eta era honetako txoriek pinudi hau erabiltzen dute habia egin eta txitaldiak aurrera ateratzeko. ETC-prentsa

Behin, Bilboko Campo Volantin pasealekuko haritz batean zegoen **amilotxaren** habia aukeratu zuen. ETC-prentsa

2 *amilotx mottodun* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Harrapatzen dituen animalien artean hauxek daude: etxe-txolarre, amilotx urdina, **amilotx mottoduna**, kaskabeltz handia, txantxangorria, zozoa, txio arrunta, txonta arrunta... ETC-entziklopedia

3 *amilotx urdin* *(corpusean ez dago; ETCn **40** agerraldi)*

Amilotx urdina ("Cyanistes caeruleus" edo "Parus caeruleus") Euskal Herriko hegazti txori txikirik deigarrienetako bat da. ETC-entziklopedia

Hegazti fauna autoktonoa: Mikak, zozoak, birigarroak, txantxangorriak, kaskabeltzak, **amilotx urdinak**, karnabak, ubarroiak, kaio hauskarak, kaio beltzak, eta buztanikara zuriak ikus daitezke. ETC-prentsa

Amilotx urdina ahoan zomorroa duela. ETC-prentsa

Bai eta txantxangorri, buztangorri, kaskabeltz, mika eta **amilotx urdinena** ere, bertzeak bertze. ETC-prentsa

Baina handik urte batzuetara, bapo miatu zuten **amilotx urdin** batzuek, baita bertan habia egiten hasi ere, baina bertan behera utzi zuten laster. ETC-literatura, saiakera

Esate baterako, **amilotx urdinak** esne-botilen aluminiozko tapakia kentzen du esne-gaina zurrupatzeko, eta beleek haragia lotzen duen listariaren puskak erauzten dituzte haragia jateko. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *amilotx zuri* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Mendebaldeko Errusian amilotx urdin eta "**Amilotx zuri** Cyanistes cyanus" hegaztiren artean hibridoak ohikoak dira, "Cyanistes" × "pleskei" izen zientifikoa dutenak. ETC-entziklopedia

---

amiltoki *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)* *iz* amildegia.

Eta Yvonnek bere burua Pleiadeetatik bidaian ikusten duen bitarte horretan, Kontsula, ber denboran, **amiltokira** botako dute. ETC-literatura, saiakera

Amiltoki, Belatoki, Erlatoki ETC-literatura, saiakera

Eta nolako **amiltokia**! ETC-literatura, saiakera

Amiltokira hurreratu gabe, bide ertzeko barandatik begietsiko dugu, zer gerta ere. ETC-prentsa

Gastu muga igaro du AEBetako Gobernuak, eta **amiltoki** fiskalaren hegian da. ETC-prentsa

---

amiltsu *izond* amildegiz betea.

Ederrena, ordea, eta Habibiri dardarizoa sartzen zitzaion ahotsean hura aipatzean, Djidjelli-rainoko kosta zen: hainbat kilometroko labarralde **amiltsua**, "Côte d'Azur itsasbazterra baino politagoa. Jon Muñoz

---

amiltxori *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi)* **1** *iz* koartzaren familiako hegazti moko-luzea *(Nycticorax nycticorax)*.

Ahuxok ahalegin amorratuekin eragin die hegoei, eragin eta eragin eta buruz aurrera zuzen-zuzen sartu da elorriondo zuriaren adar eta arantza tartera, **amiltxoria** uretan murgiltzen den bezalaxe hegoak soinari erantsita. ETC-literatura, saiakera

Eta txoriak, txirriskilak, garrapoak, kaskabeltzak, erletxoriak, txirtak, benarrizak, **amiltxoriak**, nik zaintzen ditut, Johana, joan deneko azken berrogeita bi urtetan, ETC-literatura, saiakera

Hainbat teleskopiori esker, bertako hezegunean dabiltzan hegazti migratzaileak ikus daitezke hurbiletik: lertxuntxo handia, lertxun hauskara, **amiltxoria**, mokozabala, txirri arrunta, zankaluzea, martin arrantzalea, eta beste asko. ETC-prentsa

Nafarroako **amiltxori** kolonia nagusi bakarra aintzira honetan dago. ETC-prentsa

Lan horien helbururik behinena hainbat hegaztiren habitat naturala mantentzea da, lertxun, **amiltxori** eta mirotzena kasu. ETC-prentsa

2 *amiltxori arrunt* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Amiltxori arrunta ("Nycticorax nycticorax") ardeidae familiako hegaztia da, Euskal Herrian uda aldera agertzen dena. ETC-entziklopedia

Eta, denbora gehiago eskainiz, ez da zaila **amiltxori arrunta**, amiltxori txikia edo txori zezen arruntaren presentzia antzematea. ETC-prentsa

3 *amiltxori txiki* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Amiltxori txikia ("Ixobrychus minutus") Ardeidae familiako hegaztia da. Eurasian eta Afrikan aurkitzen da. Euskal Herria Euskal Herriko hezeguneetan uda aldean agertzen da. ETC-entziklopedia

Eta, denbora gehiago eskainiz, ez da zaila amiltxori arrunta, **amiltxori txikia** edo txori zezen arruntaren presentzia antzematea. ETC-prentsa

---

amiltze **1** *iz* toki garai batetik behera erortzea edo botatzea.

Herriko kale nagusiaren farolapean pasa den eta lerro hau bukatzerako jada iluntasunean desagertu den mozkorraren alderokako ibilera da **amiltze** eta erortze aukera gertagarri baten zantzua. Harkaitz Cano

Badatoz hegalontziak urdina betean, hirurehun itsaspeko hegan, Londongo zerua Gernikakoa halako hamar, hogei, berrogei, sirenen txistua baino mingarriagoa arranoen **amiltze** astuna, oinaztuaren garraren aitzin bere tarrata. Koldo Izagirre

Askoz **amiltze** handiagoa izan baitzen aingeru matxinatu horiek, gero deabruak, erori zirenekoa. Jon Alonso

Leihotik **amiltze** betean ari nintzen beste drama batek eztanda egin zuenean. Joxan Elosegi

2 irud/hed

Espainiako etxebizitzen merkatuan epe ertainean prezioen "bat-bateko **amiltze** baten arriskuaz" ohartarazten zuen herenegun OCDEren txostenak hautsak harrotu ditu higiezinen merkatuko eragileen artean. Berria - Ekonomia

Fed-en arabera, defizit hori %5etik gora ezin da epe luzez eutsi eta dolarraren baliogaltzea eskatzen du; hori bai, pixkanakako baliogaltzea; %10 eta %15eko dolarraren **amiltze** batek eromena eragingo luke dibisa merkatuetan. Berria - Ekonomia

Edonola ere, [burrsen] **amiltze** horretan zerikusia izan du AEBetako langabeziaren azken datuak. Berria - Ekonomia

Bovesparen bezperako **amiltzea** larrutik ordaindu zuten Brasilen inbertsioak dituzten enpresek. Berria - Ekonomia

Garai batean, ekonomiaren izurri hilgarri baten adierazgarri zatekeen horrelako datu bat; Espainiako burtsa indizeen **amiltzea** ekarriko zukeen lehiakortasuna hain garbi kaltetzen duen datu batek. Berria - Ekonomia

---

amiltzear *adlag* amiltzeko zorian.

Bat-batean mundu munduko nabaritzen nintzen, zorioneria dorpe batean **amiltzear**, kasik uros. Itxaro Borda

Halako inozokeria pila bategatik infernu ilun batera **amiltzear** zegoen Europa. Alberto Ladron Arana

---

amiltzearren *adlag* amiltzeko.

Agustinak kolpetik gelditu zuen bere autoa, ikusten zuena amesgaiztoa balitz bezala, ordura arte zubia egondako lekuan azaldutako zulo beltzera ez **amiltzearren**. Aitor Arana

---

amiña *iz* amona.

Gogoratu duzu **amiña** berriro, eta kolpean etorri zaizu dena. Alberto Barandiaren

---

amiña *iz* amona.

Gogoratu duzu **amiña** berriro, eta kolpean etorri zaizu dena. Alberto Barandiaren

---

amini ik **amiñi**.

---

amini ik **amiñi**.

---

amiñi lore *iz* amañi lorea.

Cadinek bi loreri bakarrik zien begirune handia: **amiñi lore** zuriari eta kameliari. Karlos Zabala

---

amino *(corpusean ez dago; ETCn **156** agerraldi)* **1** *iz* atomo bat nitrogenoz eta bi atomo hidrogenoz osatutako erradikal monobalentea.

Gizakiaren eta txinpantzearen genoma oso antzekoak direla izan da ikerketaren ondorioa, eta proteina antzekoak kodifikatzen dituztela: kodetutako proteinen %29k **amino** sekuentzia berak kodetzen dituzte. ETC-prentsa

Ammonia eta **amino** azido kopuru handiak aurkitu ditu bere ikerketa taldeak meteorito batean, eta hain zuzen ere ammonia izeneko elementu hori da Lurrean bizitza sor zedin lagundu zuenetariko bat. ETC-prentsa

1,3,5-triazinaren deribatu ezagunena melamina da, hiru **amino** ordezkatzaile dituena eta erretxinak egiteko usatzen dena. Helburu berarekin erabilitako beste deribatu bat bentzoguanamina da. ETC-entziklopedia

Honetarako, FlbD-ren bi ertzetako eremuak, cMyb (**amino** ertza) eta LxxLL (karboxilo ertza), beharrezkoak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***amino talde*** *(corpusean ez dago; ETCn **141** agerraldi)*

Amino taldeak amoniakoaren deribatuak dira. ETC-entziklopedia

Amino taldeak zein basek zituen gogoratzen ez zuelarik, ezin izan zuen kualitatiboki deskribatu mekanika kuantikoaren argudioa, harik eta Chargaffi haien formulak idazteko eskatu zion arte. ETC-literatura, saiakera

Ekuazio horren arabera, **amino taldearen** karga positiboak eragindako disoziazio karboxilikoaren sendotzea eta karboxilo taldearen karga negatiboak eragindako taldearen ahultzea berdinak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Etilen oxidoa hilgarria da mikroorganismoentzat; izan ere, molekula proteikoekin erreakzionatzen du -batez ere, sulfhidrilo, hidroxilo eta **amino talde** funtzionalekin- eta, ondorioz, erabat blokeatzen du zelula-metabolismo arrunta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainazalean dituen karboxilo eta **amino taldeak** ionizatuta karga daiteke partikula hori. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aminoazukreak: konposatu hauetan hidroxilo taldea **amino talde** batekin aldatuta dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azukrearen karbonilo taldearen eta proteinaren **amino talde** baten artean gertaturiko erreakzioan, propietateetan eragiten duten konposatuak sortzen dira, biopolimeroa elikagaiak biltzeko material hobea bilakatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aminoazido **1** *iz* proteinen oinarrizko atala osatzen duen gai kimikoa.

Proteina tipiko bat ordena jakin batean antolaturiko ehunka **aminoazido** dira; bistan da ikaragarri zabalak direla eraketa-aukerak. Irene Aldasoro

Dauden hogei **aminoazido** horiek konbinatuz sortzen dira proteinak, ileko kreatina edo odoleko hemoglobina. Pello Salaburu

Janarian hartzen diren proteinak beren osagai **aminoazidoetan** desegiten dira, eta **aminoazido** horiek elkartzen dira gero gorputzaren barruan, era guztietako giza proteinak osatzeko. Irene Aldasoro

Aminoazidoz osatuta dagoen geruza honek babesten ditu biak, hain zuzen ere, sodioaren (gatzaren) eraginetik. Hasier Etxeberria

Aminoazido kopuru mugatu bat elkarri lotzen zaionean sortzen den substantzia natural edo sintetikoari deitzen zaio peptidoa. Berria - Gaiak

Proteina bakoitza **aminoazido**-sekuentzia batek osatua da. Juan Garzia

Entzima bakoitzak, proteina bakoitzak, bere egitura berezia du, hots, besteek ez bezalako **aminoazido**-sekuentzia bat. Juan Garzia

Ia kolageno hutsa da hezurra; **aminoazido**-nahastura bat da kolagenoa, eta hezurrak egosten direnean lortzen den kola eratzen du. Irene Aldasoro

2 ***aminoazido esentzial*** *(corpusean ez dago; ETCn **57** agerraldi)*

Aminoazido esentzialak gure organismoak sintetizatu ezin dituen aminoazidoak dira eta, beraz, dietarekin hartu behar ditugunak. ETC-entziklopedia

Elikagai moduan eta medikamentuen iturri diren heinean, landareak oso garrantzitsuak dira gizakiontzat: eurengandik lortzen ditugu **aminoazido esentzialak** eta bitaminak, eta ehunka konposatu kimiko eta farmazeutiko. ETC-prentsa

Hozitzeak **aminoazido esentzialak** handiagotu egiten ditu, eta burdinaren asimilazioa errazten du. ETC-prentsa

Aminoazido esentzialen eta ez-esentzialen proportzioa orekatzen dute, baina zenbait eredu edo patroi betetzen dituzte (Rose, arrautza-patata, plasmatikoa). ETC-zientzia, zuzenbidea

Nutrizioaren ikuspuntutik, molekula horiek eratzeko giza gaitasunaren arabera sailkatzen dira, eta, ondorioz, bi talde sortzen dira: **aminoazido esentzialak** eta ez-esentzialak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horiei **aminoazido esentzial** deritze, dietaren bidez hartu behar baititugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aminoazido esentzialen sintesirako beharrezkoak diren bidezidor horien zati batzuk herbiziden itu egokiak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Normalean **aminoazido esentzial** eta ez-esentzialen pauta orekatuak izaten dira: % 50. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aminoazido sekuentzia (4)

---

amiragarri *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) izond* miresgarria, miragarria.

Davanten arabera, 1977koa omen duen Eüskadi izeneko kantan: Hanitxen gisa baditit/ Bi Ama **amiragarri**/ Enia eta Eüskadi. ETC-prentsa

O Basabürü **amiragarria**. ETC-entziklopedia

---

amiragarriki *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) adlag* modu amiragarrian.

Ber denboran ama zenaren Basabürüa begiez besarkatzen düt, hebentik **amiragarriki** ageri beita Xiberoko bortü gora, bereziki Otxogorri Handiaren piramida perfeita. ETC-prentsa

---

amiral *iz* almirantea.

1624. urtean, kortsarioek euren reis, **amiral** edo agintari nagusi aukeratu zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arartekoa Caron jauna zen, gure anai François-ren anaia, **amiral** Platon-en lankidea. Marzel Etxehandi

-Norbaitek blokeoa hauts badezake, Darribeau da, sire, bere **Amiral**-Martin ontziarekin. Martin Anso

Elkarte hori muntatua Jean Cazenave **amiral** ohia zuela buru, herriko bozeri buruz, Paul Badiola auzapez ohiaren alde, berriz auzapez kargu hortarat hupa zadin aurtengo hauteskundeetan. Herria

Kartzelan ezarri zuten 1718ko azaroaren 10era arte, egun horretan aurkeztu baitzen **amiral**-ordetzaren epaitegiaren aurrean. Juan Garzia

---

amiralgoa *iz* almirantearen egoitza.

Eskaeraz eta helegitez setiatu zuen **Amiralgoa**. Juan Garzia

---

amiratu, amira, amiratzen du *ad* miretsi.

Baina ororen gainetik gizon zardaiaren bizitzeko gustua zein errabia **amiratzen** zituen, auzoen erran-merran larrutzaileei axolagabe zegokiela, emaztea eta amantea biak batera maitatzen zituela edo 1947an idiak saldu eta traturra erosi zuela; berritasunaren bila zebilen beti. Itxaro Borda

---

amirazio *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* mirespena.

Sistema sasiheroiko horren aurrean, Artiumeko Heroirik ez gehiago! aldarrikapena erakargarri eta kritikoa suertatzen da: bukatu dadila beste batenganako **amirazio** amaigabea, guztien gainetik distiratzeko bultzada, mundua salbatzeko beharra. ETC-prentsa

---

amironatu, amirona(tu), amironatzen du *ad ipar* almidoiztatu.

Metak eta metak amodioz **amironatu** nizkion. Itxaro Borda

Hezurrak kliski-klaska, hortzak banbaka, esku ahurrak heze eta haragiak daldarez zebilzkigun, atzealdeko jargietako emazteei halaber, **amironatu** berri zituzten mantelina brodatu beltzen gerizan. Itxaro Borda

· Erratekoa dut ordea, gure artean, nihaur ez bezala, gela usaintsuetan pausatzen eta mihise **amironatuetan** loak hartzen zituen jende horiek ugariak zirela eta edozein unetan, partikulazki bideak eta karrikak ilunpeek biltzean, pentsamendua mehatxatua suerta zitekeela. Itxaro Borda

---

amish *iz* XVII. mendean Suitzako anabaptisten zatiketatik sortu zen komunitate erlijiosoko kidea.

Medikuek AEBetako **amish** komunitatean bat-batean hildako 21 haurren kasuak ikertu dituzte Berria - Gaiak

Antzinako kontu zahar bat iruditzen zitzaidan niri hura, aitona-amonek baserria bere eskuz egin zutenekoa, edo ònico testigo filmeko **amish** komunitate hura bezala, mailu, iltze eta zerraz etxea altxatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

---

amistade *iz* adiskidetasuna, adiskidantza.

-Bazkari horrek **amistade** bat sortzeko balio izan badu, ezta hori ere! Pako Aristi

Herri horretan bazen andre bat, nolabaiteko **amistadea** izan zuena liberalen jeneral batekin. Bernardo Atxaga

Zergatik ez dugu geuk ere geure **amistade** sorberria egia batekin finkatzen? Pako Aristi

-Ez, Luisa, hemen **amistadea** ez dugu kobratzen! Pako Aristi

Orain bost urte koadrilan sartu zenetik, Larraitzen eta bion arteko **amistadeak** hobera egin du. Xabier Etxabe

---

ammonite *(corpusean ez dago; ETCn **449** agerraldi) iz* molusku zefalopodo klasea, duela 145 bat milioi urte desagertua.

Hori ondorioztatzeko **ammonite** fosilez, materia organikoz aberastutako harkaitzez eta karbonoaren isotopo egonkorrez baliatu da. ETC-prentsa

Bitrinetan Geoparkeko altxor preziatuenak ikus daitezke: Debako septarea bitxiak, Mutrikuko **ammonite** erraldoi bat, Zumaiako arrasto fosilak, duela 100 milioi urte bizi izan zen koral adarkatu bat, estalagmita baten sekzioa.... ETC-prentsa

Kareharriak **ammoniteekin** (Behe Jurasikoa). ETC-zientzia, zuzenbidea

Plinio Zaharra historialari eta naturalistak **ammoniteei** izena eman zien. ETC-entziklopedia

"Abbasites" ongi ezagunak diren **ammonite** izeneko zefalopodoen artean genero fosil bat da. ETC-entziklopedia

Gertakari hau "Paradeshayesites oglanlensis" **ammonitearen** agerpenarekin ia-ia batera gertatu zen. ETC-entziklopedia

Lyme Regisen 71 arroka geruza identifikatu dira eta bakoitzak bere **ammonite** espezie berezia du. ETC-entziklopedia

Ozeanoetan, Tertziarioaren mugan gertatutako desagertze masiboak bereziki hiru talderi eragin zien: itsas narrastiei (mosasauroei, elasmosauroei), ornogabeen hainbat talderi -bi kuskuko moluskuei (errudistei) eta zefalopodoei (**ammoniteei**, belemniteei), esaterako- eta baita itsas ere. ETC-entziklopedia

---

amnesia 1 *iz* oroimena galtzea edo ahultzea.

Amnesia batik bat lobulu tenporalen lesioak eragina bazuen ere, dientzefaloko eta lobulu frontaletako lesioak ere egin zioten berea. Xabier Olarra

Agian erotu egin zen, agian **amnesia** zen edo izen greko luze-luzeko gaixotasunen bat. Lopez de Arana

Gaizki egiten duzunaren aurrean **amnesia** sortzen zaizu. Lander Garro

Istripuko kolperen batek burua arindu, eta **amnesiak** jota nengoela. Anjel Lertxundi

Desorientaturik eta **amnesiak** jota. Xabier Olarra

Bazuen, hondoan, sen halako bat, **amnesian** galdua egon arren, irmoki azaleratzen zena. Aritz Gorrotxategi

Bere **amnesia** babes gertatuko zaio; bizirik iraunaraziko du, askatasunaz gabetzen badu ere. Jon Muñoz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Adierazi zitzaigunez, istripua zela eta, **amnesia** iragankorra jasan zuen. Xabier Olarra

Aldi bat irauten duen **amnesia** partzialaz. Harkaitz Cano

Latino Amerikako, Ekialdeko Europako eta Mediterraneo aldeko herrialdeen ordaintze-eteteen historia luzeak garbi erakusten du bai hartzekodunek, bai zordunek, beren harremanetan agertzen duten **amnesia** txundigarria. Koro Navarro

Bere bizitzako beste aro batean, akaso **amnesia** txar batek jota, izaki ignaro bat ere izan omen zen. Karlos Linazasoro

Horren bidez euskaldunen **"amnesia** kulturala" lortu nahi dela salatu du EHEk. Berria - Euskal Herria

Amnesia kolektiboa "isiltasuna", Hermann Luebbe historialariaren hitzetan beharrezkoa zen, antza, estatu demokratikoa eraikitzeko. Berria - Mundua

Orduan konturatu nintzen **amnesia** historikoaren sinbolo garbia dela eraikin hori. Berria - Harian

Amnesia bitxi bat daukate ordea hurbilagoko biktimenganako, estatu espainolean bertan, Euskal Herrian, milaka baitira. Agurtzane Juanena

Zenbat eta luzaroago egon koloreekiko itsu, orduan eta antz handiagoa zuen I. jaunak kolorearekiko **amnesia** duenarena, edo, peto-peto, sekula kolorea zer den jakin ez duen norbaitena. Xabier Olarra

Benetan sakona zen **amnesia**; sendaezina, zalantzarik gabe. Jon Muñoz

Esperientzia berriak oroimenean gorde ezinaz gain, lehendik jasotako oroitzapenen higadura ere gertatua zen (atzeranzko **amnesia**), tumorra garatu baino urte mordoxka atzerago iristen zena. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Amnesia arazoak ditu. Joseba Sarrionandia

Amnesia puntu hori burtsan lortzea zaila da. Berria - Ekonomia

Bada **amnesia** gogo bat nigan, ezingo nuke bizi ezingo banu ahaztu, baina bada memoriaren behar larri bat ere, ezingo nuke bizi ezingo banu gogoratu. Berria - Kultura

"Memoria pixka bat eta **amnesia** dosi handitan: horra gutariko bakoitzaren historia", idatzi dut. Anjel Lertxundi

Pasarte espekulatiboekin gertatzen den modura, **amnesia** pixka bat beharrezkoa izaten da indarrak berritu eta erokeriari berriz ere ekiteko. Iñaki Heras

4 ***amnesia disoziatibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Amnesia disoziatiboa: traumaren alderdi garrantzitsu batez oroitu ezina. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***disoziaziozko amnesia*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Guardiako psikiatrek Alice "desorientatuta eta shock egoeran" zegoela ziurtatu zuten, eta **disoziaziozko amnesiaren** posibilitateari atea zabalik utzi zioten beren txostenean. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amnesiak jota** (3)

---

amnesiko 1 *izond* amnesia duena.

Zehazkiago, oroimen testuinguruduna -edo "episodikoa"- zen Gregek hain nahasia zeukana; gaixo **amnesiko** askorekin gertatzen den bezala, hain zuzen. Xabier Olarra

Jimmie gaixo **amnesikoarekin** ikusitakoa ekarri zidan horrek bizi-bizi gogora. Xabier Olarra

Amnesikoa duk loroa, ulertzen? Jon Muñoz

2 *iz* amnesia duen pertsona.

Ahor dezepzioa sabelean eta beherago daramaten etorkizuneko **amnesikoak**. Harkaitz Cano

Ahaztu zaidak, bada, zer esatera nindoan"), baina **amnesikoei** baizik ez zaie gertatzen ahulezia larri-larri hori. Xabier Olarra

AMNESIKO BATZUEK dituzten lesioak (Jimmiek, adibidez, "Marinel galdu"an deskribatu nuen gaixoak, Korsakoven sindromea baitzuen) dientzefaloaren eta lobulu tenporalen erdialdeko oroimen sistemetara nabarmenki mugatuak izaten dira. Xabier Olarra

---

amnios *iz* likidoz beteriko poltsa itxurako mintza, narrasti, hegazti eta ugaztunetan umekia biltzen duena.

Esaterako, emakume batek haurdunaldian infekzioren bat badu, edo umetokian **amnioseko** likido gutxiegi baldin badago, haurra behar baino lehenago jaio daiteke. Berria - Gaiak

---

amniotiko 1 *izond* ugaztunen, hegaztien eta narrastien enbrioia biltzen duen boltsa formako mintzari dagokiona.

Ohea emeki kulunkatzen da uraren gainean txalupa bat izango balitz bezala, ur **amniotikoaren** gogorapena beharbada. Harkaitz Cano

"Eta ur **amniotikoak**?", galdetu nion nik lagunari, ironia zikintxo batez. Karlos Linazasoro

Baina agian, beraien jario **amniotikoen** txortola zelestiarrak nonbait botatzen zituzketen: nork zekien zuzen zer bilakatzen ziren lainoak. Itxaro Borda

Ama itsasoa da, eta isurki **amniotikoa** eta karena, itsaso zati bat amaren baitan. Markos Zapiain

2 irud/hed

Hori dute zoncerek, ustezko iraganean hartzen dutela aterpe, mitotik gertu, deserrealitatean direla hazten, ahazten dituela bideko lokatzak eta, edozein kritika bide bozatuz, hala dutela lasaitasun **amniotikoa** eman eta zabaltzen. Iñigo Aranbarri

Sabelaren diametroa murriztuz doa abdomen laua izan arte, eta Elenarenak izango diren buru, beso eta zangoak difuminatuz doaz akuarela **amniotikoan**. Eider Rodriguez

3 ***likido amniotiko***

Likido amniotikoaren eta bertan esekirik dauden zelula fetalen azterketa fisiko, kimiko, entzimatiko, zitologiako eta zitogenetikoa egiten da, umekiak arazoren bat duen ikusteko. Berria - Gaiak

Goio dardara batean zegoen, beldurraren **likido amniotikoan**, noraezean. Joseba Sarrionandia

Pasaiako ur zikin haiek behar zuten izan behin bildu gintuen **likido amniotikoa**, amaren sabeleko sentipen urrun haiek guztiek egon behar zuten han, urpean. Harkaitz Cano

-Oteizaren hipotesiaren arabera, hau da, gogo "gu-gu"tik etortzera -ekiten dio hausnarketa ozenari Xankapok, begirada gela erdiko puntu batean galduta-, gutarrak Gu batean batuko ginduzkeen **likido amniotikoa** litzakek Gogoa... Iñaki Iñurrieta

4 *zaku amniotiko* *(corpusean ez dago; ETCn 7 agerraldi)*

Zaku amniotikoa : likido amniotikoa deritzonaz betetako zakua da; haren barruan egoten da enbrioia. ETC-entziklopedia

Zaku amniotikoa ernaldutako obuluaren inguruan hazten da. ETC-entziklopedia

---

amniozentesi *iz* isurkari amniotikoa ziztakoaren bidez ateratzea.

Gure analisi- eta aurreikuspen-ahalak aldatu, hala ere, fetutik ehun-laginak ateratzeko metodo berriek aldatu dituzte benetan: **amniozentesia** edo trofoblastoaren biopsia (arrautzaren kanpoaldeko pareta osatzen duen ehuna da trofoblastoa, amaren umetokiko mukosarekin kontaktuan dagoena). Juan Garzia

---

amnistia **1** *iz* aginte publikoak emandako barkamena.

Preso politikoen hurbilketa, **amnistia** , mundializazioaren aurkako nekazaritzako ekimenak. Itxaro Borda

Eta gero **amnistia** etorri zuan. Bernardo Atxaga

Amnistia ez dut nik eman. Koldo Biguri

Otsailean agiri bat argitaratu zuten Caceresko presoek, **amnistia** ezin dela negoziatu adieraziz. Jokin Urain

Urte horretan **amnistia** eman zitzaien communard-ei. Berria - Kultura

Savak-ekoek zelaiko kurdu guztioi dei egin ziguten, irakiar ministro bati entzutera joan gintezen; helikopteroz etorria zen, **amnistia** bat eman zutela eta etxera itzul gintezkeela esatera. Juan Kruz Igerabide

Alabaina, bost kideri **amnistia** ukatu die Dublingo gobernuak: Kevin Walsh, Pearse McCauley, Jerry Sheehy, Michael O'Neill eta John Quinn dira. Berria - Harian

Argi esan nahi dugu prozesuaren amaierak **amnistia** eskatzen duela. Berria - Harian

1981eko **amnistiatik** ez da Frantziako estatuan hainbeste preso politiko izan. Berria - Mundua

2 (izenondoekin)

Madrileko gobernuaren kontra armetara joandako guztiei **amnistia** osoa bermatzea, militar profesionalentzakoa. Txillardegi

Aurten ere, behin berriz, **Amnistia** oso eta baldintzarik gabeko baten beharra galdatua izanen da. Herria

Martutenen bost aste bete berriak genituela, gobernuak **amnistia** orokorra eman eta kalean gintuan halako batean. Xabier Montoia

Raffarinen **amnistia** fiskala arbuiatu du oposizioak. Berria - Ekonomia

Amnistia hori ez da gisa guziz hain zabala izanen. Herria

Morrasen atzetik Fernando Armendariz Nafarroan **Amnistia** Internazionaleko ordezkariak dantzatu zuen bolaluma. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan)

Alegeraki iragan da **Amnistia** Eguna Makean, jendea etorri da oste handitan. Herria

1936ko gerlakoan Frantziara aldatutako euskal errefuxiatuen alaba, bere laguntza hutsezina eskaini die 20 urtez Baionako eta Bordeleko **Amnistia** -Batzordeei. Txillardegi

Iad Alaui Irakeko lehen ministroak **amnistia** lege bat sinatu zuen atzo. Berria - Mundua

Franco hil ondoren onartu ziren **amnistia** legeak, berriz, Konstituzioaren kontrakoak dira. Berria - Harian

Baliteke Carlos Gurpegi Athleticeko jokalariaren auzia ezerezean geratzea, Angel Maria Villar Espainiako Futbol Federazioko presidenteak **amnistia** moduko zerbait aplikatu nahi baitie zigorrak betetzen ari direnei. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **amnistia aldarrikatu** (4); **amnistia bat** (7); **amnistia bati** (3); **amnistia edo** (3); **amnistia eguna** (3); **amnistia eman** (13); **amnistia emango litzaieke** (3); **amnistia ematea** (7); **amnistia emateko** (4); **amnistia eskainiko** (3); **amnistia eta askatasuna** (7); **amnistia ez** (6); **amnistia fiskala** (3); **amnistia lege** (5); **amnistia legeak** (4); **amnistia orokorra** (7); **amnistia osoa lelopean** (3); **amnistia osoa lortzea** (3); **amnistia osoaren** (5); **da amnistia** (4); **du amnistia** (3); **elkartasuna eta amnistia** (4); **ere amnistia** (3); **gobernuak amnistia** (5); **guztien amnistia** (4); **kalera amnistia osoa** (5); **mozorrotutako amnistia** (3); **politikoei amnistia emango** (3); **presidenteak amnistia** (4); **preso politikoei amnistia** (4); **presoak kalera amnistia** (5)
>
> **amnistiaren aldeko astea** (3); **amnistiaren aldeko batzordeen** (9); **amnistiaren aldeko batzordeetako** (6); **amnistiaren aldeko mugimendua** (8); **amnistiaren aldeko mugimenduak** (59); **amnistiaren aldeko mugimenduaren** (8); **amnistiaren aldeko mugimenduek** (5); **amnistiaren aldeko mugimenduko** (20); **amnistiaren eguna makean** (4); **amnistiaren ondoren** (3)
>
> **antolatu du amnistiaren** (3); **donostia amnistiaren aldeko** (5); **du amnistiaren aldeko** (8); **enparantza amnistiaren aldeko** (3); **jon enparantza amnistiaren** (3); **mari olano amnistiaren** (4); **olano amnistiaren aldeko** (5); **zuen amnistiaren aldeko** (3)
>
> **amnistiarik gabe bakerik** (5)

---

amnistiaño *iz adkor* aministia xumea.

Amnistiaño bat gauza ona dauka, huts ttipien artetan barkatzen behar dela jakin. Herria

---

amnistiatu, amnistia(tu), amnistiatzen du *ad* amnistia eman.

1976an **amnistiatu** zuten. Berria - Kultura

Preso politiko asko **amnistiatu** berri zituzten, baina preso sozialek kartzelan jarraitu zuten. Berria - Euskal Herria

Gerra ondoan, 46an **amnistiatua** , kalean zebilela Michael O'Flaherty etxe-pintorearekin topo egin zuen. Pablo Sastre

Artxibo horien guztien balioa zalantzan jarri zuen, baina, Jone Goirizelaia abokatuak, besteak beste, Argala 1977ko legeak **amnistiatua** zegoelako. Berria - Euskal Herria

Ugandako agintariek preso zeuden gerrillariak **amnistiatzea** eskaini zioten LRAri, borroka armatua amaitzearen truke. Berria - Mundua

6 militante horiek **amnistiatuak** izanen dira 1981 eko maiatzean. Herria

Amnistiatuta daudenen artxiboak desegiteko obligazioa ez al du Poliziak?", galdetu zion Bilboko Brigada Informazioko burua izan zenari. Berria - Euskal Herria

---

amoarrain ik **amuarrain**.

---

amodio **1** *iz* maitasuna.

Heroi baten hainbatekoa da: **amodioa** eta mendekua dituzu zerbitzatuko. Jon Muñoz

Amodioa da gidatu nauena; **amodioa** da bihozberatasuna fermuki galdatzen dizuna, behar-beharrezko isilmandatu baten barkamen eske datorkizuna, hura gabe beharbada elkarrengandik urrundurik baikinateke betiko. Jon Muñoz

Legeetara bildu nahi izandu da betidanik **amodioa** , baina, grina biziegiak pizten ditu gure haragiak, legeen mugetara aisa makurtzeko. Patziku Perurena

Ez da deus azkarrik eraikitzen bortizkeriarekin ez eta ere herrarekin: **amodioarekin** dugu bakarrik xutituko herria, eta **Amodioa** den tokian Jainkoa han da. Herria

Amodioa ere aldakorra da: ez baitira txori berak gauero etortzen, ezta zuhaitz beretara ere. Markos Zapiain

Mendebaldeko kulturan, greziarrengandik hasi eta, haiek baino askoz lehenagoko jakite osasuntsu bati jarraiki, XVIII. mendera arte, gaiztzat joa izan da poetek kantaturiko **amodioa**. Patziku Perurena

Sinale min haragizkoagotzat eta naturalagotzat zeukatela **amodioa**. Patziku Perurena

Gehienetan ez dute gozatu familia baten goxotasuna ez eta aitamen **amodioa**. Herria

Halaber dut uste ezen amodioa sentitu denetik beretik, **amodio** hori barreiatzen dela adiskidantzaraino. Jon Muñoz

Maitemina denborarekin osatzen den gaitza dela diote batzuek, pasioa **amodio** bihurtzen dela, eta **amodioa** txera. Luis Elberdin

Ezkontzak ez duela **amodioa** galtzen baizik! Janbattitt Dirassar

Amodioak bi osagai ditu: bata erromantikoa eta bestea kimikoa. Luis Elberdin

Ihauteria-egunak ziren, eta **amodioak**, oilarturik, bere lakioak botatzen zituen hirian, gizarte-maila guztietara hedatzen zen konplot handios baten agenteak arima guztiak xaxatzen eta kitzikatzen ari bailiran. Xabier Olarra

Madarikatuak nire gisara **amodioan** sinesten duten inozoen hiru mila bihotz erdiratuak zanpa-zanpa eginik uzten dituzten bisonteak. Fernando Rey

Amodioen kontaketa egiterakoan maiz gertatzen da: zazpi **amodio** izan baditugu, agian hirugarrena izan zen ederrena, osoena, 'benetako maitasunaren' adiera horretara gehien hurbildu zena. Pako Aristi

Infernuko jainkoek **amodio** eta heriozko edabeen berri jakinarazi zieten. Juan Garzia

-Jaun Gwain -erantzun zion etxeko alabak-: ez zaitezela nitaz trufa; ni hain behartsua, eta zu hain aberatsa izanik, ezinezkoa da bion arteko **amodioa**. Juan Kruz Igerabide

Oztopo hori gaindituko duzu agian, ez zaitez ordea suntsituko duzulakoan hantustetu: Jainkoaren **amodioa** garaituko duzu, ez ordea deabruaren beldurra. ez nuke orobat neure **amodioa** aitortuko, baldin aitortzetik begiratu ahal izan banintz: zure tristurak sobera penatzen ninduen. Jon Muñoz

Ipurdi matrailean nozitu lehenbiziko zigorrek agudo irakatsi zioten zeinen amaigabe eta samurra den gurasoen **amodioa**. Jose Angel Irigaray

Frantziskoren adimena, orban orotatik garbi, misteriorik ezkutuenen sakonera iristen zen, eta maisuen zientzia sartzen ez zen lekura maitalearen **amodioa** sartzen zen. Askoren artean

-Horixe baita zaldunaren egitekoa, bere maitearen **amodioagatik** balentriak egitea, baita arriskutsuenak ere. Aingeru Epaltza

Romeo da, Julietari so egin zion lehen aldi hartan bezalakoa, errugabea, **amodioak** alderik alde urratua. Jon Alonso

Okasioa haatik **amodioarekin** behar zen borrokatu, eta **amodioak** herabetasuna edo ahalkea zituen euskarri. Jon Muñoz

Azken beltzean, izen xixtrin batekiko atxiki-nahia (eta geronen izenarekiko ahantzi-nahia) da **amodioaren** indar kosmiko guztia. Iñaki Segurola

Bere bizitzaren une erabakigarri hartan, Abasek inoiz ez bezala sentitu zuen **amodioaren** ahalmena, haren boterearen betea eta magia txundigarria. Patxi Zubizarreta

Errukia, elkarrekiko aitortza, ez al dira **amodioaren** laguntzaileak? Andres Urrutia

Horratx **amodioaren** zoraldi betea, zeinaren bortiztasunak bere burua baitu galtzen eta gogoa eramaten etsi gaitzeko eginbidetara hain sarri nola zerupeko edozein pairamen izaki gaixoon oinazegarri. Juan Garzia

"**Amodioaren** zauriak", pentsatu nuen. Joan Mari Irigoien

Amodioaren denbora, berriz, iraunkortasunaren, jarraikitasunaren, gelditasunaren denbora da. Jon Muñoz

Bai, andrea, artatu nituen dohakabeen erdian eman zenuen burutara, edertasuna bera edertzen duen eta bertuteari are balio gehiago ematen dion sentikortasun eder horri men eginez, **amodioaren** soberaz jadanik horditua zen bihotz haren nahasmendua. Jon Muñoz

Uko egitea, litzateke laidotua zarela niri aditzera ematea, eta neure bihotzaren bermeaz diotsut nire errespetua nire **amodioaren** heinekoa dela. Jon Muñoz

O, adiskidea, izan hadi zoriontsu, **amodioaren** erregua dun. Jon Muñoz

Gizon portatu hintzen, hori bai, baina gerraren garratzean gizon, ez **amodioaren** gozoan. Pako Aristi

Zer kultura mota da hau, emakumeak, heldu eta oso prestuak horietako batzuk, **amodioaren** izenean umiliazioa onartzera daramatzana? Berria - Euskal Herria

Ordu arte guztiz **amodioari** nengokion; **amodioak** berehala haserreari eman zion bide. Jon Muñoz

Ez polizia gisa, amoros jeloskor gisa baizik; ez ofizioak aginduta, **amodioak** aginduta baizik. Matías Múgica

Sentimendu horrek noizdanik dakarkio kaltea adiskidantzari edo **amodioari**? Jon Muñoz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Kafkaren **amodio** handia. Koro Navarro

Ezjakintasuna da **amodio** handien babes santua. Fernando Rey

Amodio handi eta egiazkoa, gizonaren barrunbeak berak bakarrik betetzen dituen horietakoa. Hasier Etxeberria

Ahantz nazazu, horrela bakarrik lortuko baituzu benetako **amodio** eder baten bidaia betiko ez galtzea. Adimenari dagozkionak: horrela esaten zitzaien **amodio** platonikoari buruzko doktrina erakusten zuten liburuei. Pako Aristi

Poema gehienetan agertzen den amodioa **amodio** kortesa da. Berria - Harian

"Ene dama maite horri azken gutuna", **amodio** guztiz platonikoaren inguruko ipuina. Xabier Mendiguren Elizegi

Amodio erromantikoa, eragin kristauaren mendez mendeko azken fruitua da. Patziku Perurena

Adiskidantza amoltsuak, **amodio** suharrak alferrik dituzte beren eskubideak galdatuko. Jon Muñoz

Goetheren **amodio** itsuko olerkien bilduma. Itxaro Borda

Amodio garbi eta egiazkoa, sekula gezurtatua izan ez den begirunea, guztizko mendetasuna; horiek dira eragin dizkidazun sentimenduak. Jon Muñoz

Amodio zintzoa dela ontasunik gorena. Jon Muñoz

Pozik egon daitezke birjintasunaren garbitasuna hobesten dutenak, sexua amatasunarekin berdintzen dutenak, **amodio** bakarrarena sinesten dutenak. Lourdes Oñederra

Barru kartsuko gizona zen eta behe-mailako izaki adimengabeei ere gupida eta **amodio** samurra zien. Askoren artean

Egunerokotasunean ez baitago **amodio** perfekturik. Joan Mari Irigoien

Obra horrek ederto islatzen ditu gure lotura emozionalak, ahalmenak eta mugak, emakumeen arteko adiskidetasunaren balioa, familia-bizitzaren mendekotasuna, **amodio** askatzailea eta suntsitzailea. Ana Urkiza

Horrek bidea eman zidan irudikatzeko nire sorreran **amodio** bero baina ezinezkoak gertatu zirela jaun noble handi baten eta ama Katalinaren artean. Aingeru Epaltza

-Jauna -gehitu zuen Lancelotek-: ni erreginaganako **amodio** zoroak jota banengo, ez zenidan indarrez kenduko, eta ez nizun hola-hola itzuliko. Juan Kruz Igerabide

Amodio lizuna, hau da, eder itxuraren ernaltze irrits sortzailea, eta, absolutuki mintzatuz, Izpirituaren askatasunaz beste edozein kausa nabari duen Maitasuna, Herra bilakatzen da errazki. Piarres Xarriton

Hargatik **amodio** debekatuak nola, hala gerlak ere ahanzten ziren. Itxaro Borda

Traditu baitituzte beren betebeharrak **amodio** gaizto batera lerratzeko. Jon Muñoz

Honelako kantak, jeneralean **amodio** galdua kantatzeko paratuak izaten baitira. Patziku Perurena

Liburuko gai nagusietako bat maitasuna da, hainbat ikuspuntutatik: **amodio** galduen nostalgia, elkarganatze fisikoaren egarria, urrutiratzearen mingostasuna. Ana Urkiza

Ispilu honetan, hain zuzen, dirdai egiten du pobretasun zoriontsuak, apaltasun santuak eta **amodio** esanezinak Izan ere, **amodio** erreprimituak askoz hobeki argitzen baitu amodioaren fenomenoa, **amodio** esperimentatuak baino. Askoren artean

Baldin **amodio** dohakabe baten doloreen beldurrez behar banaiz egon, haren jarraikitasunak salbatuko nau bederen **amodio** traditu baten oinazeetarik. Jon Muñoz

Ilunbe eztia, **amodio** herabearen bihotz-berotzailea. Jon Muñoz

Poesia ala jainkozko **amodio** baten sinbolo? Piarres Aintziart

Zinezko **amodioak** hartaraturik, neskari atera zitzaion: [...]. Patxi Zubizarreta

Kolpean gizon harenganako sekulako **amodioa** erne zitzaidan, Antjerenganako eta Giselarenganako eta pertsona mordo batenganako **amodioa** ez bezalakoa, jakina. Fernando Rey

Zorigaitzeko **amodio** batek abaildua, bertze kontsolamendurik ez nuen zu ikustea baizik. Jon Muñoz

Jende ekintzen eta harreman txukunen gibelean, beti bada **amodio** ezeztatu baten itzal luzea. Itxaro Borda

Hortik dator ez dela nehongo **Amodio** betierekorik, adimen Maitasuna baizik. Piarres Xarriton

"Ene dama maite horri azken gutuna", **amodio** guztiz platonikoaren inguruko ipuina. Xabier Mendiguren Elizegi

Poema gehienetan agertzen den amodioa **amodio** kortesa da. Berria - Harian

Hala ere, ez zian ahorik zabaldu, ez zioan inori adierazi bere **amodio** ezkutua, ezta Ginebrari berari ere. Juan Kruz Igerabide

Hor bere **"amodio** homosexualaz" hitz egiten du. Ibon Uribarri

Amodio libreari, munduko gauza alai eta on bakarrari, uko egiteko. Josu Zabaleta

Denborak aurrera egin ahala, benetako gorrotoa, benetako **amodioa** bezala, gorpuztu egiten da. Juan Kruz Igerabide

Izan ere, nahiz intimitatezko momenturen batean, pasio handiak, ezinezko **amodioak**, zapuztutako handinahien kontakizunen aurrean aise asko esan ahal izango zuen berak ere ezagutu, sentitu edo pairatu zuela, ez zuen inoiz txintik atera. Anton Garikano

Leku batean apaiz bat baino gehiago balego, kontenta bedi bakoitza, karitatezko **amodioagatik**, besteak emandako meza entzutearekin; Gezurrezko **amodio** bat, besterik ez. Askoren artean

Harenganako **amodioak**, esaera den bezala, su batean ninduen. Matías Múgica

3 (hitz elkartuetan)

-Igande arte, Angelun, **Amodio**-Ganberako aldean, Garagarnoaren besta. -Ortzegun aratsean, Angelun, **Amodio**-Gelan, euskal-dantzak Leinua taldearekin. Herria

Bi **amodio** historia dituen emakume baten gora-beherak kontatzen ditu Flaubertek. Berria - Gaiak

Amodio poemak dira Etxeparek idatziriko gehienak. Berria - Kultura

Ijito andre batek hola kantatzen zion joandako bere senar maiteari, bide batez erakutsiz euskaraz ere **amodio** hitz ederrak para daitezkeela: [...]. Pello Salaburu

Axola gutxi du baita ere jakitea zein izan zen harreman horren, etxekoandrearekin daukan **amodio** gau azken horren, oinarrian dagoena. Josu Zabaleta

Barkamena **amodio** bizitzan ezinbesteko gakoa da. Patxi Zubizarreta

Gutun bat, **amodio** sentimendu nasaienez hornatua, igorri nion Jakesi. Janbattitt Dirassar

Bera ez zen **amodio**-minez hiltzen den emakume horietarik. Patxi Zubizarreta

Amodio-minetan egoteak loa ebatsi ziela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gülbahar hagitz urduri zegoen, **amodio**-oinazez, gauza bat agerikoa zelako: Ahmeten baitan aldaketa nabarmena gertatua zen. Fernando Rey

Nire **amodio** kantua kantatu behar nuenean, ahotsik ez baina, hots haritxo bat nuela ohartu nintzen, adiskidea. ik beherago 4. Josu Zabaleta

- **Amodio** istorio hori amaitua dago baina, hala ere, zerbait berezik jo nau hura irakurtzean. Iñaki Zabaleta

Nahi bainuke nik **amodio**-jostetetan zure gatibu izan, degidazula nahi duzuna. Aurelia Arkotxa

Ez da onargarria **amodio** abenturarik gure taldean. Unai Iturriaga

Lotsa keinuak eta laztanak, eta baita zorabioak ere ikaskide baten **amodio** adierazpena entzutean. Pello Lizarralde

Laburbilduz, nire **amodio**-aitormena egin nahi nion, argi eta garbi, baina kontua behin eta berriz atzeratzen zen, gehiegi. Fernando Rey

Maitasuna ikusezina delarik, eurenganako **amodio** sugarretan dauden gurasoen bihotzak ikusterik ez dute izango, ikusten ez dena sinestea ausarkeria gaitzesgarria bada, eta ez fede laudagarria. Imanol Unzurrunzaga

Eta zetarekin batera lapislazulia, harri-kristal gorria, barruan sua duela dirudiena, esmeralda, korala eta mamut bolia, txiki-txiki eginda, hauts bihurtua, **amodio** gogo hila piztu eta berpiztu egiten duena. Felipe Juaristi

Begira auzoan nabarmen den oilanda nabar horri, oilarra etxean izanik ere, nola doan auzora, legez kanpoko **amodio** grinak sutua, senarra "zirin bedarrak ekarten" Londresen duen bitartean. Patziku Perurena

Amodio-grina baino gehiago, **amodio**-ihesa zen, amodiora egiten nuen ihes. Matías Múgica

Halako **amodio** saio baten ondoren, negarrez hastea ez dago ongi, ez da normala. Fernando Rey

Inork inoiz ikusi gabeko **amodio** jolas eta bizi grinen asebehar txit atseginetan. Patziku Perurena

Alemanian bertan, "hurrak hautsi" esanerak, ezkonberrien lehen **amodio** harremana, edo neskatxa birjinaren lehen floria urratzea adierazten omen zuen. Patziku Perurena

Nire **amodio**-kontuak ere esan zizkioat, jasaten ez dudan desengainua ere aipatu, eta hark zer eta hau esan ez zidak ba: ongi da. Fernando Rey

Ez dut ezagutzen **amodio** kontutan hain presuna ergelik. Jon Muñoz

Amodio gutun guztiak dira erridikuluak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gülbahar alde batera eta bestera zebilen jauregian **amodio**-zurrunbilo batean bezala, ezin zen geldirik egon une batez ere. Fernando Rey

Zure ondotik berriro pasatu eta **amodio**-garaian zeundela ikusi nuen. Elizen arteko biblia

Erdi Aroko **amodio** kanten aztarna lizunak, nabari nabariak dira. Patziku Perurena

Amodio-edabea edateagatik zoratu eta azkenean bere buruaz beste egin ote zuelakoa hobe alde batera utzi, hori kristau polemika berantiarretan sortua baita. Xabier Amuriza

4 ***amodio aske*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Amodio askea amodiozko harremanak ezkontza erlijio, estatu nahiz ideologia orotik ezarritako erakunde orotik kanpo bizitzea aldezten duen jarrera eta gizarte-mugimendua da. ETC-entziklopedia

Adibidez, hippien garaian, underground eta kontrakultura mugimendua eman zenean, **amodio askea** aldarrikatzen zenean, emakumeek jasandako ekintza larriak kontatzen dira. ETC-prentsa

Party haiek, eta egin nahi genituen gauzak: komunetan bizi, iraultza sexuala, **amodio askea**; Marck ez da izan sekula **amodio askearen** aldekoa baina. ETC-literatura, saiakera

5 ***amodio-belar*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ziabelar latza edo **amodio-belarra** ("Galium aparine") Rubiaceae familiako landare belarkara da. ETC-entziklopedia

6 ***amodio hartze*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

"Lehen **amodio hartzea**" instalazioak haurtzaro joanaren dolumina bihotzeratu dit... ETC-prentsa

7 ***amodio historia***

Bi **amodio historia** dituen emakume baten gora-beherak kontatzen ditu Flaubertek. Berria - Gaiak

Behin Martín Garzoren nobela batekin etorri zitzaidala oroitzen dut, "**Amodio historia** hau hiri gustatuko zain; nik, ordea, gogorragoak nahiago ditinat", esan zidan. Patxi Zubizarreta

8 ***amodio kanta*** *(orobat **amodiokanta** g.er.)* amodiozko kanta.

Amodio kanta bat ene aberriarentzat, / aberri txiki, argi handi. **Amodio kanta** zaharretan ageri den eper zango gorriak, euskal sineste horixe jasotzen du. Joseba Sarrionandia

Ni neroni maitale dohakabea naizenez gero, **amodio kanta** sotil baten konpasera hasiko natzaizu: [...]. Patziku Perurena

Bada beste **amodio kanta** lizun bat, garbarienak edo artaxuriketakoak izenekoen artean sailkatu izan dena. Patziku Perurena

Aldaera franko baditu arrosnabar edo **amodio-kanta** askotan ageri den pasarte honek, baina, guziak metafora berdinekoak: otearen lorea eta txori kantaria. Patziku Perurena

Azken batean, ahots politaz eta musika ederraren laguntzaz **amodio-kantak** abesten dituena bezala zara zu berorientzat: entzuten dituzte, bai, zure hitzak; bete, ordea, ez dituzte betetzen. Elizen arteko biblia

Ertaroko **amodio kanten** lirismo kutsu nabaria baitario ote loratuaren eta xoriaren arteko lirismo erotiko xahar gorde horri. Patziku Perurena

Hegaztia **amodio kantetan**. Patziku Perurena

9 *amodio propio*

Normandiarrak **amodio propiozko** atsegin handiak imajinatzen zituen. Karlos Zabala

10 *amodio-zuhaitz* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Judasen arbola edo **amodio-zuhaitza** ("Cercis siliquastrum") lekadunen familiako landare-espezie bat da. Lorategietako zuhaitza, adar okertu eta bihurriak, eta lore gorri biziak dituena. ETC-entziklopedia

11 *amodioa egin*

Amodioa egin zutenean, Juliak ez zuen ezertxo ere sentitu, eta izutu egin zen. Alberto Barandiaren

Gau hartan, *Everything But The Girlen* musika lehenengoz entzun zuen gau hartan, **amodioa** egin zuen Ivanekin, gizonak Lodzeko erdigunean duen apartamentuan. Iban Zaldua

Modu basatian egin genuen **amodioa**. Anjel Lertxundi

Victoriarekin izan ezik, ezingo nukeela **amodioa** beste inorekin egin. Ramon Saizarbitoria

Bart gauean, **amodioa** egin zuen senarrarekin, ez litzateke haurdun egongo bestela. Eskarne Mujika

- **Amodioa** eginen dinagu gaur. Itxaro Borda

Gerokoa ere imajina dezakezu: hondartzara joan ginen elkarrekin eta Haizeen Orraziaren zilueta ri begira **amodioa** egin genuen, inoiz egin ez dudan bezala. Jon Arretxe

Sara gizon harekin oheratu zen, eta inorekin inoiz egin ez zuen bezala egin zuen **amodioa**. Joan Mari Irigoien

Berarekin egon zinen aurreko gauean, berarekin egin zenuen **amodioa**. Sonia Gonzalez

Biek ala biek erre zituzten arestian eta aurreko bi egunetan pilatutako tentsioak, fidakaiztasunaren eta desleialtasunaren izotzak ezarritako distantziak urtuz eta **amodioa** inoiz baino basatiago eginez, inoiz baino samurrago. Joan Mari Irigoien

Ximixta bat izan zen eta mozkor-mozkorrak ginen **amodioa** lehen aldiz egin genuenean: lekukoa non zeukan ez nezakeen asma eta hark ene gaztelurako zubi hezearen bilatzeko gaitasun eskasa erakutsi zuen hastapenean. Itxaro Borda

Monikek pentsatu zuen egiazki goiz hartan egin zutela **amodioa** lehenengo aldiz, eta poztu egin zen. Eider Rodriguez

Orduan Karlek barre egin zuen, eta kontatu zion behin lorazainak **amodioa** egiten harrapatu zuela toki hartan bertan ikaskide batekin, eta benetan lotsagarria izan zela; **Amodioa** egiten zutenean, gizonaren so uherrak Rachel eta Jacoben herioaren errudun seinalatzen zuela iruditzen zitzaion Janinari. Eider Rodriguez

Amodioa egiteko duten eskubidea errespetatu behar da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

- **Amodioa** egingo didazu? -galdetu du. Lander Garro

12 ***amodiotan*** *adlag* amodio kontuetan.

Aita eta amarekin haatik, komediak, **amodiotan** dabiltzanak ezagutzen dituzten hetarik, irri bezenbat nigar dariotela eta geroa nolakoa izanen den ez jakin. Herria

Mafiako Ganbino familiako hiru buruzagirekin **amodiotan** ibilia zen Kimberly Kennaugh. Gotzon Garate

13 ***amodiozko hitzordu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Zuri izandako atorra bat zeraman, liho bikainekoa, parpaila brodatuekin paparrean, dantzaldi edo **amodiozko hitzorduetara** eramateko moduko atorra. ETC-literatura, saiakera

Iluntze hartan etxeratu zenean, distira berezi bat ematen zion bere sekretuak, ia **amodiozko hitzordu** batetik itzuli berria balitz bezalakoa. ETC-literatura, saiakera

14 ***erantzunik gabeko amodio***

Hainbat egoerak sortzen digute desamodioa; esate batera, **erantzunik gabeko amodioak**. Luis Elberdin

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

amodio bero (5); **amodio ganbaran** (8); **amodio grina** (6); **amodio handi** (5); **amodio istorio** (13); **amodio istorioa** (9); **amodio kanta** (7); **amodio kontu** (8); **amodio kontuak** (8); **amodio kontuetan** (7); **arteko amodio istorioa** (5); **baten arteko amodio** (5); **lehen amodio** (6)

amodioa egin (26); **amodioa izan** (7); **egiazko amodioa** (5); **herriaren amodioa** (7); **jainkoaren amodioa** (7); **lehen amodioa** (7)

amodioaren amodioz (6)

---

amodioaldi *iz* amodiozko aldia.

Kolpe erritmiko horiek -gerora **amodioaldi** bat baino gehiago ekarriko zuen elkarrizketa bateko galde-erantzunak- Sarriegiren martxak jasoko zituen gero pentagramara. Askoren artean

Begi itsasoak ziren, gertatutakoa oroimenaren uretan itoarazi zutenak; begi samurrak ziren, **amodioaldian** argirik gabe geratu zirenak, eta ninian maitalearen azken irudia gorde nahian Herioren aurka borrokan zihardutenak; begi gogorrak ziren, mendeku eske zebiltzatenak. Felipe Juaristi

---

amodiokanta ik **amodio 5**.

---

amodiotsu *izond* amodioaz betea.

Ez zuen gehiago ikusi; eta bakarrik, ez baitzuen dirua irabazteko bihotzik, neska **amodiotsu** bilakatu zen, bizileku finkorik gabe. Juan Garzia

Oroimena zuen liburuen ordezko; behin entzuten zuena ez zuen alferrik entzuten, baizik eta bihotz **amodiotsuak** etengabe eta debozioz hausnartzen zuen. Askoren artean

Mendi soil batean bakarrik, edatekorik gabe, lurrean etzan zen akiturik eta jaiera **amodiotsuz** bere zaintzaile San Frantziskori dei egiten zion bihotzetik. Askoren artean

Herriko berrier jarraikia zen gizonak Jainko **amodiotsua** aurkitu duela, bixtan da. Herria

---

amodioz *adlag* norbere borondatez.

Frantsesa aldiz **amodioz** maite nuen. Piarres Aintziart

---

amodiozko *izlag* amodioari dagokiona.

Batzuek, beste batzuek, agian ez dute korapilorik egiten **amodiozko** istorioetan, sexuaren lotura ere iraupen mugatuko lokarri askaerraza gertatzen bide zaie. Lourdes Oñederra

Nola behar zen ulertu Kantika Ederrenaren **amodiozko** historia? Piarres Aintziart

Jainkosa erbesteratu bati isuritako **amodiozko** odol tanten, berriz, neskaren zango lodixketako azazkal gorriz pintatuak. Aingeru Epaltza

Masturbazioa **amodiozko** eta plazerezko ekintza bat da. Luis Elberdin

Gure aita beldur izaten zen beti "saltsaren batean" sartuko ote ginen, hau da, **amodiozko** nahaste-borraste ilunen batean harrapatuta, eta gure kastitatearentzako arriskuak ikusten zituen non-nahi. Fernando Rey

Eta zergatik ageri ote da gure **amodiozko** balada zaharretan, otea horren xarmagarri? Patziku Perurena

Amodiozko kanta tontoak bata bestearen ondoan kateatuko dira etengabean harik eta marihuana honek lokarrarazi arte. Sonia Gonzalez

Ez naiz mutilaren izenaz oroitzen, baina berak gidatu ditu beharbada, lurpeko bideetatik eraginik, nire **amodiozko** hautuak. Joxan Elosegi

Amodiozko ezkontza arras gertagaitzaren kasuan, are zorigaiztokoago izango hintzateke, sufritzen ikusiko baihuen senarra. Joxan Elosegi

Bizitza aberriarengatik ematen da, gorroto edo **amodiozko** pasioarengatik, baina ez lau politikarik sinatutako akordio batengatik. Hasier Etxeberria

-Amodiozko letra bat, beraz... gizon bati! Menane Oxandabaratz

Abiatzen nintzenero, nire jantzietan **amodiozko** gutunak ipintzen zizkidan, eta, beregana gehiago erakartzeko, Kurdistan goratzen zuen, abertzaletasuna, nire edertasuna eta niganako amodioa adierazten zuten beste hitzen artean. Juan Kruz Igerabide

Estudioak, bestetik, **amodiozko** eszena gehiago sartzen saiatuko dira. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amodiozko balada (4); **amodiozko elkarrizketa** (3); **amodiozko gauzetan** (3); **amodiozko gutun** (4); **amodiozko istorio** (6); **amodiozko istorioa** (3); **amodiozko kanta** (4); **amodiozko kantuak** (3); **amodiozko nobela** (3); **amodiozko poemak** (3); **arteko amodiozko** (3); **du amodiozko gutunen** (3); **irabazi du amodiozko** (3); **nire amodiozko** (4); **sei ipuin amodiozko** (4)

---

amoina *(orobat **amuina** g.er.)* *ipar iz* limosna.

Amoina gehiago eginik irabazten da urrikalmenduaren bertutea eta saria. Piarres Xarriton

Otoitza, mehe eta barur, **amoina** eman, hau da Elizaren urtaro hunen lana berrogoi egunez. Herria

Gurutzadarentzat ematen den bi errealeko **amoina**. Piarres Xarriton

Egiguzue, bizitzari uko egin diogunoi, higuingarri eta izugarri izango ez den heriotza baten **amoina**. Josu Zabaleta

Kristautasunaren eta erlisionearen defentsa dela Bulda deitu emaitzaren oinarri nagusia, gauza gutxia eta erraza baita **amoina** berezi hura. Piarres Xarriton

Baina, izanagatik debota, ez da batere errukiorra; uko egiten dio ezein **amoina** amodiozkoari, eta uko hori aski dut ebasketa zilegia irudi dakidan. Jon Muñoz

-Egun on anderea, **amoina** otoi, jainkoak sariztaturen zaitu! Itxaro Borda

Nor da Niziasekin mintzo den zahar hura? Baionako eskaleetarik menturaz, hainbat badira karriketan **amoina** eta arraokan. Itxaro Borda

---

amoinatu, amoina(tu), amoinatzen da/du *ad*

Pierranoren seme inutilaren soldadugora ez joateko eskaera, primalerba eta vachaletant dirulaguntzen **amoinatzea**, prozedura baten jauzarazteko galdea, denak hartzen zituzten botere zerbait zeukatela sentitzen zuten populazio opulantaren hautetsiek. Itxaro Borda

Etxez etxe **amoinatu** oihal beilegiak kantoi batean zeuden, metan. Itxaro Borda

Egia erran, Therese mutxurdin geratua zen eta jakin mina handi zitala ukan arren, ez nintzen sekula zergatiaren **amoinatzera** ausartu. Itxaro Borda

---

amolatu, amola(tu), amolatzen da *ad* gogaitu, traba egin.

- **Amolatu** behar nauk oraintxe, Bittor. Koldo Izagirre

---

amoltsu ik **amultsu**.

---

amoltsuki ik **amultsuki**.

---

amoltsutasun ik **amultsutasun**.

---

amona *(orobat **amuña** g.er.)* **1** *iz* aitaren edo amaren ama; adin handiko emakumea. ik **amama**; **amandre**; **amañi**; **amaso**; **amatxi**; **amatxi**; **amiña**; **amagoi**.

Hurrengo egunetan, **amonari** tarteren bat geratzen zitzaionean -gure tabernan guztiontzat baitzegoen lana soberan-, mapamundiari begira egoten ginen. Joan Mari Irigoien

Sebastiana nire **amona** zen. Pako Aristi

Eta katua haize bolada leun baten antzera etortzen zitzaion, arin eta isil, eta **amonaren** lepo bueltan etzaten zen. Patxi Zubizarreta

Gure **amonak** kontu hartzen zionean, preso dagoenak askatasuna nahi duela erantzuten zion eta mundu guztiak botatzen dituela puzkerrak, baita gobernadoreak ere, eta beraz ez zela bera izango, bere adinean, puzker bati bidea eragotziko ziona. Karlos Zabala

Aulki gurpildunean Leireren **amona** zegoen, argal-argal, guztiz zurbil eta ilea zuri-zuria zuela, atzera orraztuta. Aitor Arana

Hobe amaldeko **amonaren** antza balu, baina ez, esaera zaharrak dioen bezalaxe jaio da hau: kaleko edozein mutilen berdina, ez amaren edo aitaren moldean egina". Jose Morales

Amona eta amama ere oso gauza diferenteak ziren bezala. Lourdes Oñederra

"Irtenbide bat bakarrik zegoen: hilketa", esan zuen **amonak**, etsipenak harturik. Gotzon Garate

Ipotxa aho zabalik zegoen, ezin sinets zezakeen **amonaren** kontakizunetan azaltzen ziren intxixu haiek egiazkoak zirenik, are gutxiago berari azaldu eta nahi zuen gutizia beteko ziotenik. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina Muchek amari kontatu zion **amona** auzoko bazter guztietan topatzen zuela Lebigre jaunarekin hizketan. Karlos Zabala

Eta beste hau... -eta orain Zamaria seinalatzen zuen- zuen **amona**: beti dabil txokolatinak oparitzen. Jon Alonso

Amonak ere dementziak jotzean arboletara igotzen dira, handik gehiago ez jaisteko. Harkaitz Cano

Jessicak ere erraz imajina zitzakeen laurogei urte geroago, **amonaren** eleetan bermatuz. Itxaro Borda

Haren kontuak entzun baino, gorra izatea nahiago duela esaka jiratzen zaio orduan **amona**. Jesus Mari Mendizabal

Bestela zuek ibiliko zarete beti hemen bueltaka-eman zuen epaia **amonak**. Andoni Egaña

Azkenean alde egin zuen Mirenek, besoen keinu nabarmenez, **amonak** bezala, mugi zedin eskatzen ari zitzaizkion gurasoen atzetik, zumardira bidean, etxeko zakur zaunkaria lagun zuela. Ramon Saizarbitoria

- **Amona**, artoa aletzen laguntzera nator. Juan Garzia

Amona, xahartuta ordurako, gaixo zegoen, eta Errepublika garaiko oroitzapenak kontatzen zizkigun etengabe. Rafa Egiguren

Gure **amonen** sehaska-kantu xumeetako leloa baino zerbait gehiago da gaur guretzat Obaba. Anjel Lertxundi

Amonak begiak berriz hetsi zituen, eta logelatik atera zen lasai segitzera ahaleginduz. Elena Touyarou

Amona, berriz, atea itxi ondoren, ohera itzultzen zen, hasperen luze bat eginez eta marmarka: Juan Kruz Igerabide

Amonaren besazpiko gihar indargea laztantzea gustatzen zaio. Alberto Barandiaren

Eta hantxe dago erretratua: ni, erdi lo, eta senideak nire inguruan - gurasoak, aitona eta **amona**, izeba Pepi, lehengusu guztiak... eta osaba Juan, bilera haien guztien gatza eta piperra -. Iban Zaldua

Zapatak kenarazi dizkioten unea jasotzen du argazkiak, eta **amonak** malkotan ditu begiak. Joxerra Garzia

Amona, zer moduz duzue? Pablo Sastre

Hauetako bat bularreko haurra utziz hil zen, eta **amonak** beste alabari utzi zion haurra hazteko; baina honek ere umea sortu zuen bere senarrarekin, eta esnerik gabe gelditu zen. Askoren artean

Zergatik ez hoa **amonarekin** artoa aletzera? Juan Garzia

Tituluak aitona soilik izendatzen badio ere, aitona eta **amona** ikusten dira koadroaren lehen planoan. Anjel Lertxundi

Gelditu zenean, Lucyk aurrena bi **amona** zaharri utzi zien jaisten, haietako batek txakurtxo bat zeraman zumezko otartxo batean, eta gero bera ere jaitsi egin zen geltoki hartan. Joxemari Iturralde

Gure **amonak** gogaitzen gaituenean, aitona niregana jiratu eta xurrumurruka esaten dit: Jesus Mari Mendizabal

-Ba al dakizu, seme, gure aitonaren aitaren **amonaren** osabaren aitaren aitona bandoleroa izan zela? Jon Maia

Eginen nikek ez dela oheratu, insolitaritatea irudituko zitzaioan, eta **amona** izan behar duela jakin duenetik ez duk gelditzen puntua egiten, ito egin behar dik haurra hainbeste txano eta galtzerdi eta eskuzorro. Koldo Izagirre

Amonak esna igaro zuen gaua: alemanek sotoan otarre bat bete arrautza eta poto bat ezti aurkitu zituzten; etxeko labea piztu zuten, tortilla egin eta vodka edan zuten. Felipe Juaristi

Ez dut jakin nahi zein egunkari irakurtzen duzuen eta non argitaratzen dituzuen zuen **amonaren** eskelak. Hasier Etxeberria

Amona geldi-geldi geratu zen, zirkinik egin gabe, aurrera begira. Jon Muñoz

Trajea zeraman, eta txaleko zuria, zeinean botoitxo gorri batzuek dir-dir egiten zioten, **amona** mantalgorriak iduri. Matías Múgica

Jorge, kamareroak, holakoetan bere **amonak** esaten zuena kontatzen digu: Pako Aristi

2 (izenondoekin)

Poz handia guretzat, Patri, pertxenta baitzen, zinez, gure amonen **amona** xarmangarri hura. Hasier Etxeberria

Irakurleak, beraz, ez dezala espero betiko neskatxa, betiko otso zitala, betiko **amona** gaixoa... Berria - Kultura

Etorritakoan, emaiozu jaten **amona** judu baten oroitzapenez. Felipe Juaristi

Lurraren pareko leiho baten aurretik pasatu naun; leiho itxiaren beste aldean **amona** zahar bat zegonan, kalera begira. Anton Garikano

Nire esker ona zor izango diot bizitza osoan, autobus baten azpira erortzeko arriskuan zegoen **amona** ilezuri hark Supermani bezala. Anjel Lertxundi

Baina hauek **amona** xahar baten txorakeriak direla pentsatuko dun; barka ezan, ez ninan hau dena kontatu behar, honezkero aspertuta egongo haiz; hi gainera gazteegia haiz oraindik eta ez zaizkin halako pasadizoak komeni. Xabier Mendiguren Elizegi

Miseria frogatzearren, **amona** errukarriaren itxurapean, jateko zerbait eskatu zion: Patxi Zubizarreta

Utzi zuen eta premio bezala **amona** beltzaren bixita. Bernardo Atxaga

Bat aukeratzekotan, Chicagoko aireportukoa aukeratuko nuke: **amona** buruzuri bat, ibiltzen ere ozta-ozta moldatzen zena, geratu eta katxeatu dute, mundu guztiaren begi-bistan, zakar eta nabarmen, nabarmen zakar. Joxerra Garzia

Lehenbiziko solairuko areto zabalenean **amona** frantsesa zeukan zain. Xabier Olarra

Emakume kontuak, lastategietako gau batekoa, zakur gosetiarena edo **amona** zaharrarenak kantatzen zituen, orduko kantak, pobreen kantak. Jon Maia

3 ***aitona-amona*** *pl* aitona eta amona.

Ez dakigu nola bizi ziren **aitona-amona** horiek. Marrazki bizidunetako **aitona-amona** xarmagarri horietakoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nire aitak hornikuntza bulegoetara joaten jarraitu zuen, zerbait gehiago eskatzera **aitona-amona** zaharrentzat, familia ugarientzat, merkatu beltzaren azpitik zeuden guztientzat. Joseba Urteaga

Maria eta Patxi, nire **aitona-amonak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Zaharren egoitzetan diren **aitona-amonei** bisita egiten diete. Berria - Harian

Emakumearen gurasoek, **aitona-amonek**, birraitona-amonek, eta bir-birraitona-amonek egindako balizko bekatuen zerrenda bota zuen, hamargarren belaunaldiraino. Koro Navarro

Allikeneko guztiekin joaten nintzen, guraso eta **aitona-amonekin** [...] baita Atxetako osaba Karmelo, izeko Primi, eta Paulo eta Gaxuxa lehengusuekin ere. Txillardegi

Alemaniar jatorriko **aitona-amonen** gorabeherak Alsazian, alemaniar izan nahi eta ezinaz. Anjel Lertxundi

Aitona-amonen herrira joango dira festetan, gero guraso eta anai-arrebekin kanpinean oporretan, gero ez-dakit-zer. Xabier Mendiguren Elizegi

Patoisa izan zen nire **aitona-amonen** hizkuntza bakarra. Joseba Urteaga

Aitona-amonena esan nionean, modu berezi batez begiratu zidan, begi beltzen atzetik, ile kizkurraren azpitik. Lander Garro

Geroago jakin nuen, Imanol izeneko pabiloi atezain bati esker, Fernando bera izan zela Industria Uhin berriaren agentea, eta berak saldu zituela, bortizki aberastuz, bere **aitona-amonenak** izandako sailak. Bernardo Atxaga

Ez neukan gogorik **aitona-amonengana** joateko ere. Jesus Mari Mendizabal

Familiako bazkari-egun horietako bat izango zen, bestela ez bainintzen azaltzen **aitona-amonenean**. Xabier Mendiguren Elizegi

Txikitatik joan izan naiz **aitona-amonenera**, jai-egunetan batik bat eta bestela ere bai garai batean; Larregira aurrena, eta kaleko pisura gero. arrazialki judua kontsideratzen da, gutxienez **aitona-amonetako** bat "erlijio komunitate judukoa" duena. Xabier Mendiguren Elizegi

Aitona-amonez jarduteak baditu bere alde on eta txarrak: txarra, aita-amez baino gutxiago dakigula, garaia askoz urrunagoa zaigula. Xabier Mendiguren Elizegi

Aitona-amonik gabeko familia da gurea. Joxerra Garzia

Aitona-amonaren irudiak, gazterik, oso gazterik, artean oraindik dena posible zelarik mundua beren esku zeukaten garaikoak. Jon Muñoz

4 ***amona gonagorri*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Umandik bere hiztegitzarrean amona mantangorriaren makina bat izen bilduak ditu: katalin gorri, marigorri, amona mantagorri, **amona gonagorri**, andere kotagorri, andre gonagorri, euli bearrigorri, kanaketa, gonagorri, katalingorri, jaungoikoilar, kotagorri, labagorri, amona gorri, mantagorri, maria gonagorri, mariana gorri-gorri, mari gonagorri, mari gorri, mari gorringo, maritxo teiletako, matxin gorri, matxin gorringo, taskorri, kastorri, maritxu teilatuko, txipilota gonagorri, mamanton gonagorri... ETC-prentsa

5 ***amona mantangorri*** *(orobat **a. mantalgorri** g.er.)* hegoak tolesturik dituenean bola erdi baten tankera duen intsektua, gaina gorri bizia zazpi puntu beltzekin duena *(Coccinella septempunctata)*. ik **marigorringo**.

Avigdor amona **mantangorri** bati so geratu zitzaion, nola mugitzen zen bere eskuaren ahurrean. Koro Navarro

Belar artean bere bidea egiten duen amona **mantangorri** baten gorputzean ipini du arreta. Amona **mantangorriari** ere galdetu nahi izan zaio, bada, ea ba ote dakien zeruko berririk. Eider Rodriguez

Gure historiako sinesmenetan marigorringoari (matxingorri, mariñela gorri, amona **mantangorri** kattalingorri ere deitua eskualdeen arabera) egiten zitzaizkion galderak eguraldiari buruz, hura baitzen, azken batean, ilargiaren sinbolo bizia. Pello Salaburu

Trajea zeraman, eta txaleko zuria, zeinean botoitxo gorri batzuek dir-dir egiten zioten, amona **mantalgorriak** iduri. Matías Múgica

6 ***birraitona-amona*** *pl* birraitona eta birramona.

Behin, Marylanden, esklaboen lau familia ezagutu zituen, ehun urtean elkarren ondoan bizi izandakoak: **birraitona-amonak**, aitona-amonak, amak, aitak, osabak, izebak, lehengusuak, haurrak. Anton Garikano

Eta emakumearen gurasoek, aitona-amonek, **birraitona-amonek**, eta bir-**birraitona-amonek** egindako balizko bekatuen zerrenda bota zuen, hamargarren belaunaldiraino. Koro Navarro

Nire **birraiton-amonak** han-hemenka jarriak dauden erretratu obalatuengatik baizik ez ditut ezagutzen. Karlos Zabala

7 ***herenaitona-amona*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) pl*

Albuma haien ideia izan zen, nire **herenaitona-amonena**. ETC-literatura, saiakera

Halarik ere, hegazkineko emakumearen aitita-amamak izan ez baziren ere, izan zitezkeen birraitona-amonak, edo **herenaitona-amonak** edo dena delakoak, guri berdin zaigu. ETC-literatura, saiakera

Hau da, arbaso zuzen bat (gurasoak...) edo lehenagokoak, (aitona-amonak, birraitona-amonak, **herenaitona-amonak** ...) eta honelaxe, denboran atzera eginez. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

aiton amona (7); **aitona amona** (13); **aitona eta amona** (10); **amona bat** (12); **amona batek** (8); **amona ere** (11); **amona hil** (9); **amona xahar** (9); **baina amona** (7); **bere amona** (11); **edo amona** (8); **eta amona** (83); **gure amona** (40); **hire amona** (14); **nire amona** (17); **zuen amona** (19)

aiton amonak (35); **aitona amonak** (20); **amonak ere** (11); **amonak esan** (11); **amonak esaten** (12); **amonak ez zuen** (10); **baina amonak** (10); **bere amonak** (7); **gure amonak** (28); **hire amonak** (7); **zuen amonak** (24)

amonaren etxean (19); **amonaren etxera** (11); **gure amonaren** (9)

---

amonal *iz* nitrato amonikoz, ikatzez eta aluminio hautsez osaturiko gai lehergarria.

Polizia iturrien arabera, **amonala** erraz eskura daitekeen lehergai mota da, "etxean egin daitekeena". Berria - Euskal Herria

Leherkari mota **amonala** zela ere zabaldu zuten atzo. Berria - Euskal Herria

Amonalez eta kloratitaz betetako poltsak eta haiekin batera topatutako 30 bat detonatzaileak eta tenporizadoreak Frantziako Poliziaren esku daude. Berria - Euskal Herria

ETAk, gure alderdia suntsitzeko, **amonala**, amosala eta tiroak erabili ditu. Berria - Euskal Herria

Bonbak 5-7 kilo **amonal** zituela esan zuten, eta ez kloratita, bezperan esan zutena. Berria - Euskal Herria

EAEko Herrizaingo Sailak jakinarazi zuenez, **amonala** erabili zuten leherketetan. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amonala erabili (4)

---

amonatxo *iz adkor* amona.

-Urduña inguratzen duten basoetan **amonatxo** bat bizi zen, bakar-bakarrik. Pako Aristi

Okilak, berriro, ikusi zuen dena: goiz batean **amonatxoa** elurretan zaku bat gordetzera atera zen. Pako Aristi

Ia ehun urtera iritsi zaigu **amonatxoa**, **Amonatxoek**, oinak minez dauzkaten eta ibiltzen batere gusturik hartzen ez duten eta zapata pare bat baino ez daukaten atso gaixoek. Joan Mari Irigoien

Etxe atariko harrian eserita aurkituko duen **amonatxoari**. Pako Aristi

Ordu t'erdi egoten naiz bertan eta beti diferente kobratzen dit **amonatxo** txinatarrak. Harkaitz Cano

Nire haurtzaroko eskola txiki eta Kontxexion **amonatxo** maistrarekin akordatu naiz. Pello Zabala

Berehala ikusi nuen nire adiskidea, **amonatxo** beltzez jantzi bati besoa emanez. Josu Zabaleta

---

amondar *iz* Jordania ekialdeko herri bateko kidea.

Amondar gudari-taldea eta haiekin batera bost mila asiriar aurreratu eta, kanpalekua haranean ezarririk, israeldarren urtegi eta iturriez jabetu ziren. Elizen arteko biblia

Roboamen amak Naama zuen izena eta **amondarra** zen. Elizen arteko biblia

Akior **amondarraren** hitzaldia. Elizen arteko biblia

Hortan, hil zen **amondarren** errege Nahax eta beronen semea gertatu zen hurrengo errege. Elizen arteko biblia

Aramearrak ere ez ziren ausartu aurrerantzean **amondarrei** laguntzera. Elizen arteko biblia

Joab **amondarren** hiriburuaz jabetu. Elizen arteko biblia

Thebastik hamar eguneko bidean barrena **amondarrak** dira lehenak. Patziku Perurena

Joab bidali zuen Dabidek, ofizialekin eta Israelgo soldadu guztiekin, **amondarrak** porrokatzera eta Raba hiria inguratzera. Jose Antonio Mujika

Azkenean, egin zuen saldukeriaz lotsaturik, **amondarren** lurraldera baztertu zen berriro. Elizen arteko biblia

Sidondarren jainkosa zen Astarte gurtu zuen; bai eta **amondarren** sasijainko nardagarria zen Milkom ere. Elizen arteko biblia

Aramgo, Sidongo eta Moabeko sasijainkoak gurtu zituzten, bai eta **amondarrenak** eta filistearrenak ere. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izena eta amondarra (3)

amondarrek eta moabdarrek (3)

amondarren erregeari (4); **amondarren hiri** (3); **amondarren kontra** (9); **amondarren lurraldera** (5); **amondarren raba** (3); **amondarren sasijainko** (4); **zen amondarren** (3)

---

amondu[1], amon(du), amontzen *(corpusean era burutuan izenondo gisa soilik)* **1** da *ad* amona bihurtu; zahartu. ik **aitondu**; **aitona-amondu**.

Harriturik utzi nau Telleriko alaba **amonduak**. Patziku Perurena

2 irud/hed

Hitz **amondu** beltzez jantzia: pesalonbrea, tragediarik latzenaren, penarik haundienaren, hondo ilunean ageriko zaizu beti; tristurak kaburik ez duela dirudien zoko ilun horretan beti, samin guzien kontsolagarri iduri; eta, behar bada, ez gutxiagotan, oinaze erdi asmatu, negar eta espantu haundi samartu [...]. Patziku Perurena

3 ***aitona-amondu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Gure gizartea inoiz baino **aitona-amonduagoa** dagoen bitartean, errealitate hori fikzionatuko duen aitona-amonarik ez. ETC-prentsa

Ibizan ezagutu nuen Gonzalo, Arturoren bitartez, hura eta haren emaztea sarri azaltzen baitziren diskotekara; sei seme-alaba zituzten, ordurako hainbat aldiz **aitona-amondu** zituztenak. ETC-literatura, saiakera

---

amondu[2], amon(du), amontzen da *ad* adiskidetu.

"Zakurra ez da harrukaldiz **amontzen"** (harrika adiskidetzen). Gotzon Garate

---

amonestatu, amonesta(tu), amonestatzen du *ad* kargu hartu.

-Ez zaitez sinplea izan - **amonestatu** zuen P-k mahaitik zutituz. Bernardo Atxaga

---

amonestazio *iz* kargu hartzea.

Eta **amonestazioa** ezarriko ziguten. Joseba Sarrionandia

---

amoniako **1** *iz* nitrogenoz eta hidrogenoz osatutako gasa (NH_3), koloregabea eta usain sarkorrekoa, gernuaren eta beste zenbait gai organikoren hondatzetik ateratzen dena.

Amoniakoa (proteinak apurtzean eratua, oso toxikoa) urea bihurtzen da. Irene Aldasoro

Oso gas disolbagarria da **amoniakoa**, eta oso energia gutxi behar da, edo batere ez, hura gorputzean sortzeko. Irene Aldasoro

Oso gas disolbagarria da **amoniakoa**, eta oso energia gutxi behar da, edo batere ez, hura gorputzean sortzeko. Irene Aldasoro

Grasa kentzeko **amoniakoa** duen garbikari bat erabiltzen dugun bakoitzean, Amon jainkoaren oroitzapen bat uzten ari gara garbitzen ari garen ontzi edo kristalean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Makinetako iluna sekula ez zitzaion joaten azazkaletatik, ez xaboiz, ez lixibaz ezta **amoniakoz** garbituta ere. Jasone Osoro

2 (hitz elkartutetan)

Amoniako-gasa txorroteko uretan disolbatu, eta saski-ontzitan salduz eta auzo guztia kutsatuz ateratzen baitzuen bizimodua. Juan Garzia

ESAko astronomoak lurreratze-moduluaren aire-poltsek atmosferan utzitako **amoniako** arrastoak aurkitzen saiatuko dira Mars Express zundak duen espektometroaren bidez. Berria - Gaiak

Sudurretara eroanez, usaina hartu zion estreinakoz Karrikak, eta **amoniako** lurrin gotor batek bota zuen atzeraka. Hasier Etxeberria

Egun osoan lixiba eta **amoniako** potoen artean sartuta daukat sudurra. Jasone Osoro

Geldiarazi, eta kontu handiz laxatu nizkion estalkiaren torlojuak: txistuka irten zen **amoniako**-bolada bat, zegokionez. Juan Garzia

Bostehun aldiz **amoniako**-kontzentrazio handiagoa dago gernuan. Irene Aldasoro

Aire kanpaiak gutxi ziren; bakoitzak, testuaren aginduei jarraiki analisi sistematikoan buru-belarri, azido kloridriko eta **amoniako** isuri puska ez nolanahikoa lurrunarazten zuen aire zabalera. Juan Garzia

---

amoniko *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi)* **1** *izond* amonioari dagokiona.

Lapurtutako materiala "**amonikoa**" dela esan du, eta militarren lehergailuak "indartzeko" ere balio duela adierazi du.[ETC-prentsa¬Berria, 2009-08-25]Departamentu bereko Pardailhan herrian, berriz, 203 kilo nitrato **amoniko** atzeman dute. ETC-prentsa

[...] erreka eta akuiferoen kutsadura (hazte prozesuaren hondakin **amonikoaren** eraginez), legeak babestutako espezieen desagerpena (Martin Arrantzalea) [...]. ETC-prentsa

[ETC-telebista<->Bazterrak nahasten, Goenkale, 2015]Farmazia ikasten jardun nuenean, kimikako klasean ikasi genuen: **amonikoa** ez da sekula nahastu behar ez kloroarekin ezta lixibarekin ere.

Haren lanak erakutsi zuen urea (konposatu organikoa) sor dezakegula zianato **amonikoa** (konposatu ez-organikoa) erabiliz. ETC-entziklopedia

2 ***kloruro amoniko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Fumarola alkalinoak (edo amoniakozkoak): erlatiboki hotzagoak dira, gutxi gora-behera, 100 °C ra heltzen direlarik. Nagusiki, Azido sulfhidriko, **kloruro amoniko** eta ur lurrinez osaturik daude. ETC-entziklopedia

3 ***nitrosulfato amoniko*** nitrato amonikoaren eta sulfato amonikoaren nahastura.

Fertiberia enpresak bestelako produktuak egiteko osagai moduan erabiltzen diren azido nitriko, nitrato kaltzio-amoniokoa eta **nitrosulfato** amoniokoa egiten ditu. Berria - Euskal Herria

---

amonio **1** *iz* kimikan, hidrogenoz eta nitrogenoz, osaturiko erradikala, NH_4 formula duena.

Astelehen arratsaldeko ekaitza zela-eta, estoldetako ur zikinak zuzenean ibaira joan ziren; oxigenoa gutxitu egin zen, **amonioa** handitu eta horrek eragin zuen arrainak akabatzea. Berria - Euskal Herria

20 tona **amonio** nitrogenatu zeramatzan kamioi bat lehertu, eta gutxienez 16 pertsona hil eta beste 11 zauritu ziren atzo Mihailesti hiri ondoan, Errumaniako erdialdean. Berria - Mundua

Bainugelara joan nintzen berarentzako **amonio**-gatzak hartzera eta itzultzean ikuskizuna gori-gori zegoen. Lopez de Arana

Bat-batean, **amonio**-hidratoaren usain bortitza aditu zen. Jose Morales

Nitrogeno oxidoa **amonio** nitratoa kontu handiz berotuz prestatzen da. Juan Garzia

Laudio **amonio** sulfatoarekin Waterford-era. Urtzi Urrutikoeetxea

Amonio kloruroa, antzinako alkimian Ammonen tenpluko Gatz Amoniakoa zeritzona, zeinak burdina herdoiltzeko joera nabarmenagoa baitzuen noski, hura herdoiltzetik babesteko baino. Juan Garzia

Amonio klorurozko laino itxi zurixka batek harturik zegoen beti laboratorioa. Juan Garzia

Fertiberia enpresak bestelako produktuak egiteko osagai moduan erabiltzen diren azido nitriko, nitrato kaltzio-**amoniokoa** eta nitrosulfato **amoniokoa** egiten ditu. Berria - Euskal Herria

2 ***amonio bikarbonato*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Amonio bikarbonatoa NH4HCO3 formula duen konposatu kimikoa da, azido karbonikoaren gatz azidoa dena. Giro-tenperaturan ez da oso egonkorra eta amoniakoa askatzen du, batez ere, hezetasun gutxiko lekuetan. ETC-entziklopedia

3 ***amonio bisulfato*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Amonio bisulfatoa, amonio hidrogenosulfato gisa ere ezaguna, (NH4) HSO4 formula duen solido zuri kristalinoa da. Azido sulfurikoa amoniakoarekin partzialki neutralizatzearen emaitza da. ETC-entziklopedia

4 ***amonio-gatz***

Bainugelara joan nintzen berarentzako **amonio-gatzak** hartzera eta itzultzean ikuskizuna gori-gori zegoen. Lopez de Arana

5 ***amonio karbonato*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Amonio karbonatoa, adibidez, zorabioak jotakoak esnatzeko sudurpean jartzen den prestakinaren osagai aktiboa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Badira zenbait karbonato gatz disolbagarri, alabaina: sodio karbonatoa, potasio karbonatoa eta **amonio karbonatoa**. ETC-entziklopedia

6 ***amonio klorato*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Amonio kloratoa NH4ClO3 formula kimikoa duen konposatu kimiko inorganikoa da. Oso ezegonkorra da eta lehergailuak egiteko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

7 ***amonio kloruro***

Amonio kloruroa sartzen bazen formulan, zerbaitetarako balio zuen seinale; zertarako balio ote zuen, inork ez zekien ordurako, baina ez zekiola burutik pasatu ere egin kentzerik, zeren "inoiz ez baita jakiten". Juan Garzia

Azidoak kaltegarri gertatzen ziren beste kontu batzuengatik: **amonio kloruroarekin** aproba egitea bururatu zitzaidan, gai baita berun oxidoarekin egonkorki konbinatzeko, kloruro disolbaezin eta geldo bat emanik eta amoniakoa jareginik. Juan Garzia

8 *amonio nitrato*

Horrez gain, 500 kilo **amonio nitrato** atzeman zituzten. Berria - Mundua

Nitrogeno oxidoa **amonio nitratoa** kontu handiz berotuz prestatzen da. Juan Garzia

9 *amonio sulfato*

Laudio **amonio sulfatoarekin** Waterford-era. Urtzi Urrutikoeetxea

---

amonite *iz*

Nautilus moluskuaren antzeko antigoaleko bizidun batzuen fosilak ziren, noski, baina irudimenak duen lilurarekin Amon jainko ahariaren adarrak zirela sinestea nahiago izan zuten eta Amonen adarrak harri bihurturik zirela uste zutenez, **amonite** deitu zien fosil horiei. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

amor ik **amor**e.

---

amoral *izond* ardura edo zentzu moralik ez duena.

Nire fede onaz eta nire eskarmentu-faltaz baliatu nahi izan zuen, barrenik gabeko gizon **amorala** zen. Karlos Zabala

Ezein pertsona zentzudunek ez du ukatuko merkatua jaun eta jabe **amoral** eta sarritan apetatsua denik"Kredo" tradizional zaharrak krisiak eraitsi zituenez gero, jende pila bat hemen horrelaxe ibili baita denbora askoan, exker pinpirin, kristautasun progre baten eta estetizismo **amoralaren** artean dilindan. Iñaki Heras

*Jakintzaren arbola*ko protagonista Andres Hurtado, barojar jarreraren eredu da, bizitzea egokitu zaion garaiaren kontrako atsekabearen eta errebeldiaren isla denez gero, baita mailatan eratutako gizartearen kontrakoarena ere non **amoralenek**, axerienek, kontzientziaren harrari kasu gutxien egiten diotenek aurrera ateratzeko erraztasun guztiak dituzten. Josu Zabaleta

---

amoralismo *iz* jarrera amorala.

Ulertu dela, espero dut, ulertarazi behar nuena: Miranderen **amoralismoak** ere, kristautasunaren arbuioak bezalaxe, bere testuinguru eta lagunarte zabalagoa duela. Joxe Azurmendi

---

amoraltasun *iz* amorala denaren nolakotasuna.

Ez da nire asmoa iritzi horien guztien oinarrizko logika eza edota **amoraltasuna** salatzea. Bernardo Atxaga

---

amorant ik **amorant**e.

---

amorante *(orobat **amorant** g.er.)* **1** *iz* maitalea.

Sinets nazan, bertze maitale bat hauta ezan, nik bertze **amorante** bat hartu dudan bezala. Jon Muñoz

Teresak, 3. pisuko bizilagunak esaten zidan **amorante** bat bilatu behar nuela, merezita neukala. Jasone Osoro

Zorigaiztokoa norbaiti lotzen zaion emakumea! Nahikoa da **amorante** bat askatasuna galtzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ezkontzan sinetsiko banu, zu nahi zintuzket senar eta **amorante**...! Joan Mari Irigoien

Ateratzen zaion ahotsa aholku ematen ari den guraso batena da, ez **amorante** batena. Oskar Arana

Horrela, halako batean, elkarren **amorante** bihurtu zirela konturatu zen Antonio, nahiz eta bera ezkonduta egon eta Ainhoarengandik banatzeko inolako asmorik ez izan. Iban Zaldua

Biak ohe batean, ez **amorante** engoitik, baizik eta etsai. Oskar Arana

Emaztea garbitu, diruak eskuratu eta bere aspaldiko Danimarkako **amorante** Alexandra Isles-ekin ezkontzekotan omen zebilen. Gotzon Garate

Behialako bere **amorante** Valmonteko bizkondeak bakarrik ditu egintzok ezagutzen. Markos Zapiain

2 (izenondoekin)

Horregatik, bere maitaleen esku utzi nuen, bere **amorante** asiriarren esku. Elizen arteko biblia

Gizon zahar bat eta bere **amorante** gaztea. Oskar Arana

Teresak **amorante** gazteak askozaz sutsuagoak direla esaten zuen, eta agian arrazoi guztia izango du, baina guztiak horren petralak baldin badira, kostako zait nik baino 20 urte gutxiago dituen mutil batekin partekatzea logela eta armairua. Jasone Osoro

Bere matrailezurraren keinua nabarituko zenuen telefonoz bestalde eta nola urduri almohada bat harrotu eta lisatzen saiatzen zen, zerbait egiteagatik, sorbaldaz telefonoaren besagia sustengatzen zuen bitartean, bere magalean, bere hankartean pausatzen zelarik **amorante** ezezagun baten burua. Harkaitz Cano

Jesarlekutik oheratzeko besterik ez zen altxatzen egun osoan, eta beste inon ezin zituen indarrak han bai xahutzen zituela, Dionisio eta Helena **amorante** amorratuagoak ziren-eta egunetik egunera. Xabier Mendiguren Elizegi

Emaztekiak gertatua jakinarazi zion bere **amorante** debotari: nola senarrak aurkitu zituen galtzoinak, eta nola ez zekien hark non gorde zituen. Joan Mari Irigoien

Napoleonek ez omen zuen ulertzen poloniar haien atxikimendua, zaldun saiatu haien sua eta kemena, ezta Maria Walewska **amorante** poloniar sutsu eta kementsua haien jokaera argitzen saiatu zitzaionean ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kontuak kontu, eta ikusiak ikusi, ordura arteko guztia ahaztu eta sexuan gogor -heldu, erabateko- jarduteko agindu nion nire buruari, **amorante** ohiarekin hitz eman bezala. Jon Alonso

Errudun agertu zuen bere burua hark ere, baina ez zeukan ez izenik ez traturik eskaintzeko, eta Harryren **amorante** ohiari zazpi urteko kartzela-zigorra ezarri zioten. Oskar Arana

3 *irud/ad*

Itsasoa baitzen, apika, ez berak uste zuen olagarro ankerra, baina berak bizitza osoan bilatu izan zuen **amorante** bakarra, dei egiten ari zitzaiona, berarekin bat egin zezan: bere arima bikiarekin, alegia. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amorante bat (11); **amorante bati** (3); **amorante ohia** (5); **amorante ohiaren** (3); **ez amorante** (3); **nire amorante** (4)
zuen amorantea (3)
bere amoranteak (3)
bere amorantearekin (5)

amorantegai *iz* amorante izatekoa dena.

Eta bertzenaz ez dut ahanzten ezen zeure **amorantegai** ugarien ordez hartzen nauzularik berriz, men egin behar diedala, berriro, zure gutizia ttipiei. Jon Muñoz

amoratu, amora(tu), amoratzen da *ad* maitemindu.

Gu **amoratuta** geunden, Angel, gazteak ginen. Alberto Barandiaren

amore

1 *amore egin* *(orobat **amor egin**)*

Camberrak eta Erromak berretsi zuten atzo ez dutela "terroristei **amore egiteko**" asmorik. Berria - Mundua

Eta jendea **amore eginda**, batez ere lelo ezagunenak egiten zirenean. Berria - Kultura

Betidanik hainbeste apez bere kudeantzan izan duen agerkariak etzuen segur bere kristau hatsa ukatzen, bainan alderdi tinkiegi batzueri **amor egin** gabe haatik. Herria

2 *amore eman* *(orobat **amor eman**)* gogor egiteari edo buru egiteari utzi, onartu.

Eta guztioi bezala zerbait jateko gogoak ematen zionean, nekez **ematen** zion **amore** gurariari. Askoren artean

Negoziaketa nekeak izan dira, fakturrek ez **amor eman** nahi, Postako buruzagiek ere ez... Herria

Ondoko ibilaldian, berritz, eta bestean... Baina azkenean **amor eman** nuen. Filipe Bidart

Gorputza laxatzen zitzaidala zirudien, eta edozeren aurrean **amor ematen** zuen malgu; bere amarrak askatuak zituen, eta edonor jolas zitekeen berarekin, trapuzkoa balitz bezala. Juan Garzia

Ez zuen ezer ulertu eta **amor eman** zuen! Ramuntxo Etxeberri

Haurraren onetan, nik dakita ez diodanetz **amor eman** behar...! Janbattitt Dirassar

Euriak ez zuen **amor ematen**; Gutretarrek, kaletarraren laguntza edo eta trabarekin, azienda puska salbatu zuten, nahiz abere asko bertan ito zen. Juan Garzia

Frantsesak ez dakit, baina gaztelerak ere eskaintzen ditu, berez, horrelako jokoetarako aukera: beso bat / un beso, **amor eman** / dar amor; saio bat / un sayo, oso / un oso, asko / asco. Joxerra Garzia

kulpabilizatzeko eskubiderik; euskaldunak gara, arinak, ilunak, friboloak, tragikoak eta munduaren errealitate nahasian (batzuetan baieztatuz eta bakarretan **amor emanez**) jardutea gustatzen zaigu. Itxaro Borda

Amor eman gabe, egoskor, bakoitzak geureari eusten geni-on, baina aldi berean, adostasunerako bideak eraikitzen ahalegindu izan gara. Andoni Egaña

3 *amore emate* gogor edo buru egiteari uztea, onartzea.

Hainbeste ibilaldi zoro hara eta hona, hainbeste ikasketa eta lan, hainbeste min eta neke, hainbeste izu eta negar, hainbeste **amore emate** eta umiliazio bizitza osoan zehar, honetarako? Juan Luis Zabala

Bere ustez egiten ari zitzaidan izugarrikeria nolabait apaldu nahi zuen **amore-emate** horren bitartez. Karlos Zabala

Amore emate lotsagarri honen ondorioz Nafarroako UCDkoak xanpaina edaten ari dira. Berria - Euskal Herria

Ez da **amore emate** liberaletarako unea. Berria - Mundua

Gertagarriagoa zirudien Sobietar Batasuneko gobernuak Estatu Batuekiko gerra baten izugarrikeriei aurre egitea Estatu Batuei **amore-emate** politikoak egitea baino. Iñaki Mendiguren

Hornitzaileak axolagabekeriarako grina unibertsalari egindako **amore-emate** eskuzabala. Xabier Olarra

Terrorismoaren aurkako politika **amore emate** etengabea. Berria - Euskal Herria

4 *amore ematear*

Latrape mendatean gora, Iban Mayo **amore ematear**. Berria - Kirola

Théoden, agian, **amore ematear** zegoen, buru zaharra erortzen uztear. Agustin Otsoa

Olivier etsitzear zegoenean, belarria atean itsatsita komediantea **amore ematear** zegoela iruditzen bazitzaion ere, azken unean berriro hasten zen teklak sakatzen eta sakatzen, indarberrituta. Harkaitz Cano

Amore ematear, halere, detektibearen ustean. Migel Angel Mintegi

5 *amore ematearren*

Nik gorrotoa ere dexentekoa nion Café Odéon delakoari: emigranteak eta intelektualak, bohemioak eta irakasleak, eta cocotte zaharrak baserri-eskualdeetatik etorritako negozio-gizonentzat; Hannari **amore ematearren** joan ohi nintzen bakarrik Café hartara. Joxe Austin Arrieta

6 *amore min* ik **amoremin**.

7 ***amoreagatik*** *(ETCn **162** agerraldi; orobat **amoreakatik** ETCn **64** agerraldi, eta **amorea gatik** ETCn **11** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **amoreagatik** agertzen da)* *adlag* (izen edo izenordainekin, -(r)en kasu atzizkiaren ondotik). -en izenean, -a gogoan harturik.

Beraz, nire bakearen **amoreagatik** eta zuri nizun estimaziotxo hori pikutara ez bidaltzearren, ez nizun ezer esan. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta horrela bere Pintorearen **amoreagatik** bera gabetu zen munduan zuen maiterik maiteenaz. Aurelia Arkotxa

Maitasunaren **amoreakatik** egiten dena beti baita barkagarri, nire aburuz. Xabier Montoia

Fedearen **amoreagatik**, fedeak eskatzen dizunari uko egiten diozu. Joseba Zulaika

Ama prestu ohorezko bat hiltzen denean, ondotik gelditzen den seme umezurtza, anitz lekutan da bere aitaren **amoreagatik**, ongi etorria, eta arraiki errezibitua. Pello Salaburu

Zure **amoreakatik** - dagoeneko esan dizut - dena ahaztua nuen, ez nion amari kasurik egiten eta inor ez zen nire ardura. Eduardo Matauko

Hiru egunetan oinaze gorriak jasan ondoren, bere burutazioez benetan damututa, Frantzisko dohatsuari egin zion dei, bere zauri aintzatsuen **amoreagatik** lagun ziezaiola eskatuz. Askoren artean

Gurutzatuek ez zuten onartu portugaldarrei laguntzea Jainkoaren **amoreagatik** soilik. Markos Zapiain

• Eta amorioa da, edo ez da deus ere, zeren eta komunionean Jainkoa hartzen dugu, bai, baina Jainkoak har gaitzan **amoreakatik**.

Gainerako lagunak Baionan zeudela Andde askatu deiadarka eta Txikiko ostatuetan mozkortzen, Ttotte Manezen ehortzetan zen, etxeko norbait ager zedin **amoreagatik**. Itxaro Borda

8 ***amorearren*** *adlag* amoreakatik.

Ene laztana, solas daigun Geurtxeok biok bakarrik Jaun zerukoaren **amorearren**. Berria - Kultura

amorebietar *iz* Amorebietan jaiotako pertsona.

Jon Idigoras **amorebietarra**, ezker abertzaleko kide historikoa, zendu da Bilbon, Deustuko San Sebastian klinikan, 69 urtetan, biriketako gaitzak jorik. Herria

amoremangaitz *izond* gutxitan amore ematen duena.

Orduan, haatik, nora galdua zen beira trinkoaren zurruntasun **amoremangaitz** hura? Juan Garzia

amoremin *(orobat **amore min** g.er. eta **amore-min** g.er.) iz* maitemina.

Everett-en neskatila itsua, udalehenean, egunsentian dago, munduko argitasun bizia zeruraino goratzen deneko gaztaro birjinean, eta **amoremin** arrotz batek, begi bietako argia bihotzera bildu dio. Nor harritu munduko **amoreminen** tenplutzat gibela hartu izana? Patziku Perurena

Ni baino filologo jakitunago baten esku uzten dut sekretu hori, baina, faborez eskatzen diot, ez dadila ahantz **amoreminaren** sorlekuaz, gibel-hiel horretaz, alegia. Patziku Perurena

Everett-en neskatila itsua, udalehenean, egunsentian dago, munduko argitasun bizia zeruraino goratzen deneko gaztaro birjinean, eta **amoremin** arrotz batek, begi bietako argia bihotzera bildu dio. Patziku Perurena

Milagrogoko alaba Ritari, elkarrekiko **amoremin** // inoxente hartan, hexurrik gabea eta hexurdunak, // denak amoltsuki eskaini zenizkidalakotz behin. Patziku Perurena

Horra hor, behin eta berriz, gure gibel zaharra, **amore minen** sorleku eta aterbe, egungo usarioan bihotza legez. Patziku Perurena

Opera-lanean txakur bat sartzera, Teresak **amore-minez** jaulkitzen dituen ahapaldien artean, zeruari bere auhena egin liezaion uztera? Oskar Arana

amoretsu *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) izond* amodiozkoa, amodiotsua.

Eta haren edertasunak zeharo sututa, jarrera maitekor eta **amoretsuekin** saiatu zen neska bultzatzen bere gurariei kontra egin gabe amore ematera. ETC-literatura, saiakera

Behereko belardiko lanparen argitan uharra bihika zihoan, samur, ukigarri, **amoretsu**. ETC-literatura, saiakera

"Xuxurlaka-xuxurlaka,/ etenezina fereka,/ bi gorputz **amoretsu,/** atzoko malekoia./ Ez da non, da nola". ETC-prentsa

Bere zaletasun handiena abentura **amoretsuak** ziren, eta amorante ugari eduki zituen Borgoinako gortean. ETC-entziklopedia

amorez *adlag* amoreagatik, amodioz.

Eta ongi atera zitzaigun, gure alde, eta gure lagunen alde, jakina; horretarako ari baikinen, gure lagunen oroimenez eta egiaren **amorez**. Iñaki Segurola

Schopenhauerrek dioenez, apenas inork jarduten zuen eztabaidan egiaren **amorez**. Joxerra Garzia

Hala dela ikusteko, gogora dezagun santuek pozaren pozez eman zutela beren bizia zuzentasunaren **amorez**. Joan Mari Lekuona

Unamuno hau da, herri espainol intrahistorikoaren erredentore, eta horren salbazioaren **amorez** Estatu oligarkiko eta zentralistaren apostolu bilakatua, Bilbora etorri dena -ez Lore Juglare, baizik aita misiolari ("apostolu zibila")-. Joxe Azurmendi

Hirugarren modua hau izan zen: behin, grazia handi bezala, arren eta arren eskatu zion San Frantziskori karitatearen **amorez** bere abitua emateko eta trukean berarena hartzeko. Askoren artean

Ez arimen artzain: ardien artzain, eta ez erretorika arkadikoz edo burubide bitxiz, pozik eta gustura baizik, lurraren eta belarraren **amorez**, eta bihotzaren joriz. Juan Garzia

amorfo *izond* forma zehatzik ez duena.

Artxiboa da, halaber, eragiten duena esandako gauza horiek guztiak ez daitezen metatu mordo **amorfo** batean. Xabier Arregi

Kontua ez da harritzekoa, zeren genomak ditu behar diren argibide eta azalpen guztiak bizi hasieran dagoen zelula multzo **amorfo** hori lur azalaren gainean dagoen makina perfektuena bihurtzeko aste batzuk pasatu ondoren. Pello Salaburu

Beltz horrek, presentzia **amorfo** eta gogogabea, ikusmena, usaimena eta dastamena gainditzen zituen, urrutitik gainditu ere. Monika Etxebarria

Al Kaeda talde **amorfoa** da. Berria - Mundua

Hau da, sentimenen materia **amorfoari** kategoria edo adimenaren moldeen eta kontzeptu "hutsen" bitartez adigarriki ematen zaio forma eta, soilik ondoren iristen gara kontzeptu enpiriko edo esperientziara, ezagutza objektibora ("zaldi"ra, adibidez): zerbait (sentigarri **amorfoa**) zer bilakatzeko (adigarriki mugatua), adimenak (bere kontzeptu "hutsekin") ezarri dion formaren bidez bilakatu da. Askoren artean

Halako Irlanda **amorfoa** zen britainiarrek egindako kartan ageri zena. Iñigo Aranbarri

Marmar motel **amorfo** bat entzun genuen aurki, ez hain urruna. Karlos Linazasoro

Jende triste guzia jainko **amorfo** horren bila dabilela oraindik, bere buruaren Jabe bila, alegia. Patziku Perurena

Eszena hartan bi izaki **amorfo** samarren amodio kontuak eta gorabeherak ageri ziren. Joxemari Iturralde

Gizaki alderrai aske **amorfo** batzuk. Markos Zapiain

Horixe antidotorik eraginkorrena egunero bonbardatzen gaituzten milaka mezu **amorfo** eta polimorforen aurrean. Txema Ramirez de la Piscina

amorgino *izond*

Efesotarrek tunika **amorginoak** eramaten zituzten, gardenak, goruan iruniko lihozko jantzi bioleta, purpura eta azafrai kolorekoak. Juan Garzia

amorio **1** *iz* amodioa.

Orduan ikasten dugu ezen etxea desterru ere bihur litekeela, **amorioa** desamorio. Joan Mari Irigoien

- **Amorio** batean, **amorioa** bezain inportant dira xehetasunak. Joan Mari Irigoien

Zeren zinez bainengoen amorosiak jorik eta ene **amorio** hari errendaturik. Joan Mari Irigoien

Beti bizirik dago Züberoan Matalazen ezpiritüa, libertatearen **amorioa**. Herria

Abarizios izanen haiz, baldin gaztetasunaren donuak eta ondasunak, hala nola haragiari eta **amorioari** lotuak egon daitezkeenak, heuretzat bakarrik gordetzen badituk. Joan Mari Irigoien

Handik aitzina, solasean segitu genuen, eta Mignon, neure **amoriorako** gaitasun ustezkoa berriro goratu ondoren, bere bizitza kontatzeari lotu zitzaion. Joan Mari Irigoien

Lastozko zubia egin du, itxoltxarren baterakoa edo, ez palaziorako harri landuzkoa, eta haretan pasarazi nahi du andregaia, amodio froga gainditzeko, baina, pasatzen hasi eta, zubiarekin batera punpa gure Bartolo, eta horra atzenean: ez zubi, ez andregai eta ez **amorio**. Patziku Perurena

Amorioaren desira aseezinak bulkaturik. Joan Mari Irigoien

2 (izenondoekin)

Zeren eta oraindanik aitzinatzen baitizut ezen osaba Joanikotenganako **amorio** ezkutu hura izan zela amaren bizitzako gorabehera guztia, haren geroko jokabidea guztiz baldintzatu zuena. Joan Mari Irigoien

Eszena labur hura aski izan zitzaidan **amorioaren** handian sinesteko. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan)

Etxean gurasoei askotan aditu eta, neronek han eta hemen jasoa daukadan pasakari honetan ere, beste hainbeste: otearekin batera, **amorio** kontuak tarteko: [...]. Patziku Perurena

Otalore horrek bezalaxe, zer ikusirik izan ote zezakeen, otatxoriak ere, gure **amorio** kantu lizunon sorreran? Patziku Perurena

4 *amoriozko* *izlag*

Kapitainaren hitzak entzun bezain fite, osaba Joanikot eta Maddalenen **amoriozko** iduri ezin ederrago hura etorri baitzitzaidan berriro bururat. Eta Elbirarekin inozentziaren ertzetik bizi izan nituèn **amoriozko** mementu gogoangarri haiek ere, gohaingarri egin zitzaizkidan bat-batean, haragikeriazko bekatu zital. Joan Mari Irigoien

5 *amorioarren* amodioagatik.

Baina Jainkoaren **amorioarren** ! ez daitezela zeruko gauzak eta lurrekoak berriro nahas. Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
amorio hura (4); **amorio suerte** (3); **ene amorio** (3); **zen amorio** (3)
amorioa ez (3)
gure amorioaren (3)
amoriozko historia (4)

---

amoros 1 *izond/iz* maitemindua, maitalea.

Parrokiko apez fededun kartsuaren gibelean bazegoen gizon gazte **amoros** bat. Piarres Aintziart

Arrazoin zuen, zeren eta ni ere amorosturik bainengoen, eta pertsona **amorosak** bezala ez nekusan eta ez nekien zer ari nintzen. Joan Mari Irigoien

Libertin **amorosak** , baldin libertina izan ahal baledi amoros, ez baitu une horrez geroztik horrenbertze presarik gozatzeko. Jon Muñoz

Honela esan zidan, burua errazen soiltzen den puntuan, han kalparrean, hiru muxu **amoros** ematen zizkidala: [...]. Joan Mari Irigoien

Horrela segitzen du nere lagunak, gizaldiz gizaldi poeta ahul horiek zutik ezin egon ahala gizendu duten "morbo **amorosaz"** hitzegiten. Patziku Perurena

Amodioa diot; zeren **amoros** baitzara. Jon Muñoz

Argonen erresumarako bidaia biziki luzea izan omen zela, baina enetako laburregia izan zuan hitaz **amoros** bainintzen, bertze batendako hautatua nindutelarik. Aurelia Arkotxa

Bakarrik utzitakoan bihurtzen gara **amoros** , bakardadeak egiten gaitu izuti, bakardadeak ahuldu egiten baikaitu. Pako Aristi

Itsu nintzen, zentzutik kanpoan nintzen, zeren, Plutarkok ere zioen bezala, gaitz zen **amoros** izaitea eta zentzuan egoitea. Joan Mari Irigoien

Errana didate norbaiten **amoros** izatea gaizki dagoela; baina zergatik da hori? Jon Muñoz

-Lurraren **amoros** zen. Michel Oronoz

"Jesus! apezgai hori **amoros** omen dugu! Piarres Aintziart

Herriko jendeak azkar baino lehen eman zuen argitara bi **amoros** haien joan-etorrien berri. J.M. Olaizola "Txiliku"

"Bertze ardurarik gabe, **amoros** amoltsu hark, bere zinak ahantzirik, men egin zuen hasieran eta onartu zuen azkenik: ez uste lehen une horren ondoren liskarrak eta malkoak aldi berean berriz etorri ez zirenik. Jon Muñoz

2 (izenondoekin)

Haurrek beren artean barre egiteko gizajoari berehala antzematen dioten bezala, maitale krudelak **amoros** inozo eta koitaduari igartzen dion moduan, halaxe detektatzen dute ikasleek irakasle bat noiz den hasi berri esku-txuri asmo onekoa, hartaz trufa, iseka eta ahalik burla gehien egin ahal izateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez polizia gisa, **amoros** jeloskor gisa baizik; ez ofizioak aginduta, amodioak aginduta baizik. Matías Múgica

Aitzineko asteazkenean erabili solasetarik banekien ondoko aldian gu bien arteko besarkadak usaian ez bezalako segida ekarriko zuela, biak **amoros** kartsu goxatuko ginela! Janbattitt Dirassar

Erraidazu bada, **amoros** hitsa, eduki dituzun emakume horiek, uste duzu bortxaz eduki dituzula? Jon Muñoz

3 *amoros izan*

Ez dakit nola izan zen: hain segur ere ez dut Valmont jauna maite, aitzitik; eta une batzuetan haren **amoros banintz** bezala nengoen... Jon Muñoz

Ondarrean eskapatzera utzi nuen **amoros nintzela** . Piarres Aintziart

-Lurraren **amoros zen** . Michel Oronoz

Argonen erresumarako bidaia biziki luzea izan omen zela, baina enetako laburregia izan zuan hitaz **amoros bainintzen** , bertze batendako hautatua nindutelarik. Aurelia Arkotxa

Bai, **amoros nintzen** . Daniel Landart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
amoros nintzen (3); **bi amoros** (3); **haren amoros** (3)

---

amorosgai *iz* amoros izatekotan dagoena.

Amorosgai dohakabeen ostea emakume jeloskorren osteari gehitu zitzaion orduan, eta eskandaluzko jarraikitasun hura ororen gaitzespenaren peko ezarria izan zen. Jon Muñoz

Zehatzago jakin nahi nuenez haatik, ni nintzen edo ez lehia lausengarri haren egiazko xedea, nahi izan nuen **amorosgai** berria nire eta bere jaidura nagusiaren artean hautatzera behartu. Jon Muñoz

---

amorosia *iz* maitemina.

-Ez! -ezezko harekin estali nahi izan nuen odolak agerian jartzen zidana, zeren zinez bainengoen **amorosiak** jorik eta ene amorio hari errendaturik. Joan Mari Irigoien

-Jakizu ezen ene ezteietakoa izan zela ene bizitzako egunik dohatsuenetarik, zeren zure aitaz amorosturik bainengoen, eta **amorosiak** egiten gaitu aldian behin jainkozko. Joan Mari Irigoien

Zeren hura ere gizon baitzen, eta amorosturik zegoen gainerat, ni bezala, eta ulertu behar zituen gizon baten obligantzak eta eginbeharrak, **amorosiaz** denaz bezainbatean. Joan Mari Irigoien

---

amoroski *adlag* maitasunez.

Konturatu nintzen femme fatale bat izan nahi zukeelarik ere, Barbararen bihotza gizonaren zaintzari **amoroski** emateko desiraz irrikan zegoen neskato burgestxo batena zela. Ramon Saizarbitoria

Besoak ditugula, geure muga horiei buru egiteko, zeren, geure deusezetik bertze deusez bat **amoroski** besarkatzen dugunean, erortzen dira mugak eta loratzen zaigu bihotzean eguzki bizi gori bat, urrerik urretsuena baino distiratsuagoa dena. Joan Mari Irigoien

Ene bizitzako hainbat gertaki oroitu nuen... eta oroitzapen onak **amoroski** oroitu nituen. Joan Mari Irigoien

Maitek Klaudiori bere suge beltza potxonan hartu nahi zuela esan zion eta kubatarra **amoroski** ari zen zeregin hartan. Aitor Arana

Desertuak, jakina, onartu egiten zituen, baina ez hutsaren truke edota **amoroski** , baizik eta, Le Goff historiagileak ondo adierazi zuenez, ordain gogor baten aldera:

anakoretek aurre egin behar izaten zioten, hala, ordu luzeen aspertasunari. Bernardo Atxaga

Irri egiten dut orduan gertatuaz, eta irri egiten diot neure buruari, ez ankerki eta krudelki, baina urrikalki eta **amoroski**. Joan Mari Irigoien

Esne jadanik bilduan eskuak deblauki sartuz, **amoroski** eta xeheki, andere ezezagunak azalpenak eskaintzen zizkidan: [...]. Itxaro Borda

Bi hatzaz heldurik, ezker-eskuin eragin zion ene sudurrari, ezin **amoroskiago**. Joan Mari Irigoien

---

amoroso *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **amodiotsu** agertzen da) izond* amodiozkoa, amodiotsua.

--- Salaketa ekarpen **amoroso** bat zela esaten euskuen seminarioan. ETC-literatura, saiakera

Nire gorputza amilduratik goratzen hasi zenean (txoria bere buruari eusteko lain suspertu zenean), Talitak lore **amorosoak** eta esklamazio poetikoak debekatu zituen, eta berriro zirkinik ere ez esan dut!! ETC-literatura, saiakera

Eta erritu horien bitartez sentimendu **amorosoa** -errelatua- indartu egiten da. ETC-literatura, saiakera

Alegia, maitemintzea, sexua praktikatzea eta ezkontzea, hirurak objektibo **amoroso** bakarrean bateratzearen kontua. ETC-prentsa

Historial afektiboaren errelatoetan ere Sinopeko Diogenesi gertatutako subertitzea suertatzen da sarri: geldoa oroitzen da bizia balitz bezala, koloretsuaren oroitzapena izan daiteke grisa, burokrata **amoroso** bat oroitu daiteke militante bat bezala. ETC-prentsa

Ez, obsesio **amoroso** bat konpontzea ez da gradu kontua, egun osoan horretaz pentsatzeari uztea baizik. ETC-prentsa

"Munduaren egoerak min ematen dit", azaldu zuen; lana topatzeko ezintasunari eta erlazio **amoroso** toxiko bati egotzi zien ardura. ETC-prentsa

Zenbaitetan helburu **amorosoarekin** eta beste batzuetan gorputzaren plazer soilak mugitutakoak dira topaketak. ETC-prentsa

Tira, horri esker, eta kartzela telebisibo horretan sartuta zegoen bitartean kanpoan eraiki zuten nobela **amorosoari** esker. ETC-prentsa

EMAKUMEA 2.- Jaungoiko **amorosoa** ! ETC-telebista

---

amorostu, amoros(tu), amorosten **1** da *ad* maitemindu.

Jaun Marcel apez izaiteko bidean egon zen; ordenatzeko puntuan zegoela, ordea, neska batez **amorostu** eta harekin ezkondu zen, handik gutirat alarguntzeko. Joan Mari Irigoien

Erika Txokoz **amorostu** zen. Itxaro Borda

Hainbertze edertasunez suntsiturik, Armeniako Printzea **amorostu** zen han berehala aire gaiztoak burutik beheiti jo izan balu bezala. Aurelia Arkotxa

Pertsona baten eginak eta ekinak zentzuz aldatzen baitira eta erranahi berezia hartzen, noiz eta bertze pertsona batez **amorosten** den, nola izan baitzen amaren kasua. Joan Mari Irigoien

Baldin desiratzen dena eduki gabe ezin bizitzea, baldin desira horri nork bere denbora, plazerrak, bizia eskaintzea **amorostea** bada, egiaz eta benaz naiz amoros. Jon Muñoz

Alta, zuk ondo dakizu amodioaz mintzatzera makurtzen den emakumeak azkenean **amorosturik** bukatzen duela, edo **amorostu** balitz bezala jokatzen bederen. Jon Muñoz

2 (du aditz gisa)

Amadis banintz, **amorostuko** nuen nire ondora jartzera etortzen zen dama. Aingeru Epaltza

3 (era burutua izenondo gisa)

Ez zaitut xehetasunekin gogaituko, baina ulertuko duzu, gizon heldu **amorostu** baten eskeei erantzuten jardun beharrean, banituela aurreagoko lanak. Xabier Mendiguren Elizegi

Tourvel lehendakariaren emazte debota seduzitzen entseatzen ari da, hasieran ospe hori sendotzearren, baina gero eta **amorostuago**, bere buruari aitortu nahi ez dion arren Markos Zapiain

4 (era burutua izen gisa)

Herriko xarmatzaile usteko zenbaitek eta **amorostu** anitzek eskatuta asmatzen nituen lerro haietan erakutsi gabe gordeak neuzkanak esan eta idatziko nizkiola berari, gordinak, garratzak, gaiztoak. Koldo Izagirre

Amorostuak egia bilatzen du, baina ez, filosofo klasikoen antzera, patxadaz, baizik erokeria ilun batek bultzaturik. Markos Zapiain

Amorostuarentzat jakinduria ez da mintzozkoa, baizik intimitate isila. Markos Zapiain

Polikiago begiraturik, dena den, nabari da Leturiaren egunkaria-k ez digula maitasuna oro har erakusten, baizik maitasunak zelako gogo-bideak ibilarazten dizkion **amorostuari**. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amorostu zen** (5); **batez amorostu** (3)
> **dotrinarekin amorosturik** (3)

---

amoroztar *izlag* Amorotzekoa, Amorotzi dagokiona; Amorotzeko biztanlea.

Larunbatean Nathalie Chamalbide **Amoroztar** andere xarmantak hartu du espos laguntzat Jean Jacques Damestoy herritarra. Herria

---

amorpropio *iz* nork bere buruaz duen estimua.

Ia-ia berea ere baden frontoian bi partida segidan galdu ditu eta, **amorpropioa** ere baduela eta, partida bat behintzat irabazi nahi dit. Xabier Etxabe

Amorpropioa da alde duen gauzarik onena; inor begira dagoenean ez du nekerik izaten eta ordubete egin lezake jotzen horrelakoetan, deskantsurik gabe; benetako plazagizona da, erromerietako soinu-jotzaile peto-petoa. Xabier Etxabe

---

amorragarri *(orobat **amorrugarri** g.er.)* **1** *izond* amorrarazten duena.

Amorragarria bere bizia eta ingurukoena katramilatzeko haren dohain aparta. Aingeru Epaltza

Gizonaren gainditze-ahaleginak traketsak ziren, zelebrezkoak, **amorragarri** bezain tristeak, baina guztiarekin ere deduzkoak. Juan Garzia

Galtzagorri eta antzekoak, deabruen pertsonifikazio gisan erabili ohi diren zentzu berberean, hego haizeari ere pertsonaia bihurri, deabru, **amorragarri** zarpajario eta bazter nahasle baten irudia emanez bezela edo. Patziku Perurena

Eta hemen gabiltza gu, etsigarritarako mundura azalduak eta ume **amorragarriak** izanak, geuretzako etsigarri bati heldu ezinak eromen batean gauzkala. Iñaki Segurola

Bekaina harrotu dut, hala egin dut ziurrenik, baditut hobetu beharreko zenbait tik **amorragarri**. Koldo Izagirre

Irriño **amorragarri** bat atera du agureak, eta lehen bezain patxadatsu galdetu die hankagorri hauei, begietara behatzen diela banan-banan: [...]. Koldo Izagirre

Ez nuke asmatuko une hartan zenbat eta nolako burutazioak izan nituen esaten, ezta tripetako kilika **amorragarri** hura adierazten ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Charliek maiz kontatu izan dizkit eskola-etxe horretako izugarrikeriak: Munnings jaunari buruzkoak, zein aldarte **amorragarria** duen, eta zer-nola daukan zigor-makila luze bat idazmahai gaineko hormatik zintzilik. Mirentxu Larrañaga

Egoskorkeria **amorragarriaz** tematu nintzen, dirua neure kontura irabazi nahi nuen, eta azkenean Vienara joatea lortu nuen, saltzaile gisa, ahaide baten jantzi-denda handi batean. Eduardo Matauko

Azter ditzagun arretaz erlijio okaztagarri honen dogma zentzugabeak, misterio beldurgarriak, zeremonia **amorragarriak** eta moral ezinezkoa, eta ikusiko dugu ea komenigarriak izan daitezkeen errepublika batentzat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Dena zekien, bai, **amorragarri** hark. Koldo Izagirre

Amorragarria egingo zitzaion Triesteko erbestealdia, Espainiatik horren urruti, ikusirik ezin zuela ezer egin iloba Isabelek usurpatutako koroa eskuratzeko. Anjel Lertxundi

Hipokrisiazko gainjantzi berri honek, berdintasunik ezaren bizio zaharra baltsamatuz, alde bakoitza mespretxagarriago bihurtu zuen, baita ahulago ere, beste aldearen begietan, eta horregatik egoera **amorragarriago** bihurtu zuen, baita ez hain astuna ere, bi aldeentzat. Iñaki Mendiguren

Izan ere, ez dago gauza **amorragarriagorik**, formalista amorratua baino. Joxerra Garzia

Batere exajeratu gabe esan daiteke beraiek egin dutela lanik handiena eta **amorragarriena** gure historia hau idazterakoan. Jokin Urain

Itxurazale soila izatea, aspergarri eta **amorragarri** gertatzen baitzaizu luzera. Patziku Perurena

2 (forma soila, -en atzizkiaren eskuinean)

Gurasoenean gela partekatzen genuen garaietan, batxilergoa aitzina ateratzen erabili behar zuen denbora paperak koloretzen ematen zuen, aita zenaren **amorragarri**. Aingeru Epaltza

Lehendabizi berritu dezadan, memoria flakiak jota dutenen mesedetan eta bertsoak gogoratzen dituztenen **amorragarri**, bertsolari donostiarrak kontatutakoa. Anjel Lertxundi

Kostunicak Kosovo kantoi bihurtzeko asmoa iragarri du berriki, albaniarren **amorragarri**, eta urrian Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo dira Kosovon. Berria - Mundua

Armagizon guti batzuen konpainia horniturik, Amikuze, Arberoa eta Garazi aldean ibili zen, hemen kolpa eta handik itzur, beaumondar traidore eta gaztelarren **amorragarri**. Aingeru Epaltza

Espainiako Gobernuak, CEOE-CEPYME patronalek eta CCOO eta UGT sindikatuek atzo sinatu behar zuten gutxieneko soldataren inguruko akordioa, baina Gobernuak sinatzea hilabetez atzeratzea erabaki zuen, sindikatuen **amorragarri**. Berria - Ekonomia

AEBetako BPG uste baino gutxiago haztea ere burtsaren **amorragarri** izan genuen atzo. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amorragarri gertatzen** (4)
> **amorragarria da** (6)

---

amorraldi *iz* haserrealdi nabarmena eta bortitza.

Pozik nago etxe honetan nik izaten ditudan **amorraldi** berak dituen beste bat oraindik badelako. Josu Zabaleta

Salamancako Udalaren **"amorraldia"** baino ez zela eta agiriak dagokien lekura itzuliko direla ziurtatu zuen: "Sen onaren kontra eta orain legearen kontra ere doan alferrikako azken keinu bat da". Berria - Mundua

Annek, izan ere, bere egunkaria idatzi zuenean hamahiru-hamabost urte zituen, eta argi eta garbi adierazi zituen hartan bere ezinikusiak, haserreak, **amorraldiak**, eta bere zaletasun eta begikotasunak. Josu Zabaleta

Nik, Parisko kaleetan ondo-ondotik igaro zaizkidan ume adoragarri horiek guztiak gogoratzen ditudanean, neure burua urkatzeko moduko **amorraldiak** izaten ditut. Josu Zabaleta

Ildo horretatik, errekurtsoa PPko gobernuaren **"amorraldi** politikoari" egotzi zion Jaime Tejedor Gipuzkoako Kofradietako presidenteak. Berria - Ekonomia

---

amorrana ik **almorrana**.

---

amorrarazi, amorraraz(i), amorrarazten *(orobat **amorrazi**)* du/da *ad* amorratzera bultzatu.

"Ene!", esan ohi diot, "ez, gero, ni **amorrarazi** halako berriketarekin". Bazirudien haien pailazokeriek are gehiago **amorrarazten** zutela Draco Malfoy, gero eta garraztuago agertzen baitzen bi anaiak hala ikusten zituen bakoitzean. Mirentxu Larrañaga

Gu, eta ni partikularki, biziki **amorrarazten** gaitu batzordeak hori egiteak: guk oso ondo dakigu data horietan non geunden eta zer egin genuen. Berria - Harian

Hik ere badakik, nik bazekiat hik ere badakiala, eta zerk **amorrarazten** hau hainbeste? Anton Garikano

Apur bat nagusikeriaz jokatzen zuen nirekin batzuetan, baina horrek ez ninduen **amorrarazten** -haren lanpostua zen, azken batean-. Mirentxu Larrañaga

33 urteko beteranoa saiatu zen lehen setean kontrarioa bolea eta globoekin **amorrarazten**. Berria - Kirola

-Baina tira, ez nau horrek **amorrarazten** -jarraitu zuen Ferminek-, ni **amorrarazten** nauena jende honen goganbeharra da, asmo txarra, handiustea. Josu Zabaleta

Ia alaia zen itxura zeukan aurpegian, ni berehala apur bat **amorrarazi** ninduena, eta mutilek ere, nire ustez, arrazoi horregatik baztertu zuten. Urtzi Urrutikoetxea

Haserretzen gintuenean, nire arreba txikiak eta nik, **amorrarazteko**, galdetzen genion: [...]. Juan Kruz Igerabide

Ni **amorrarazteko** egin dizu hori. Karlos Zabala

Horrek guztiak ikaragarri **amorrarazi** zuen Harry. Iñaki Mendiguren

Emaztea maite dut, baina **amorrarazi** egin ninduen nire gelan horrela sartu izanak, atea jo gabe esan nahi dut. Patxi Iturritegi

Sasiletratuak horixe du: gauzak bizi eta sentitu arren, ezin dituela adierazi bere burua matizetan galduz; eta **amorrarazi** egiten da, eta isildu. Patziku Perurena

Jexux **amorrarazi** egiten zen harekin: batetik, haren eskolako ikasle bakarrak ez zuelako pentsatutako aurrerapenen erdirik ere egiten. Xabier Etxabe

Lagun judu dezente zuen aitak -neuk bakarrik dakit garai hartan zenbat **amorrarazten** eta lotsatzen ninduen horrek-. Anjel Lertxundi

Ikasle guztiok **amorrarazterainoko** kontuak botatzen zizkigun aurpegira, abildade handia zuen horretarako. Anjel Lertxundi

Elkar txunditzeko, elkar **amorrarazteko** ikasgaiak ditugu. Berria - Euskal Herria

Halaber, izugarri **amorrarazten** nau jendeak galdetzeak: "Zenbat argaldu zara?". Berria - Euskal Herria

Itzuri egiten zion, eta horrek Karlos areago **amorrarazten** eta ernegarazten zuen. Koro Navarro

Beldur izaten zen beti, gutako norbaitek bataiatuko ote genuen, bera **amorrarazteagatik**, behin nire anaietako batek, txantxetan, bataiatzearen keinua egin ziolako. Fernando Rey

Fulbertok, **amorrarazita**, irenarazi egin zuen Abelardo. J.M. Olaizola "Txiliku"

- **amorrazi** zen artzaina-. Bernardo Atxaga

Amorrazi egiten zen senarraren ateraldi haiekin, eta segurtasunik handienaz esan zion ilunabar aparta zela hura. Anton Garikano

Baina bera ateekin **amorrazten** zen; ate guztiak uzten zituzten zabalik. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amorrarazi egin** (5); **amorrarazi egiten nau** (3); **amorrarazi zuen** (4)
> **amorrarazten nau** (3); **amorrarazten ninduen** (3); **gehiago amorrarazten** (3); **horrek amorrarazten** (3)

---

amorratu, amorra(tu), amorratzen **1** da/du *ad* nor bere onetatik atera; nor bere onetatik aterarazi.

Baina Isabelek "ez, zu ez" esan zidan, eta ni apur bat **amorratu** nintzen eta bat-batean isiltasuna nagusitu zen gure artean. Mikel Hernandez Abaitua

Damutuko zaik DIB bat hartu izana, **amorratuko** haiz maletan aukera gehiago sartu ez dualako, madarikatuko duk egunkaririk edo aldizkaririk ez erosia. Anjel Lertxundi

Paulina, berriz, ez zela batere beldurtu, baina **amorratu** bai, izugarri **amorratu** zela bere izena Obabako politenen artean aurkitu ez zuenean. Bernardo Atxaga

Maisuari errezitatzen genizkionean ere barrea ateratzen zitzaigun esaldi bakoitzean, eta maisua **amorratu** egiten zen errespeturik ez genuelako. Pello Lizarralde

Horregatik **amorratu** egiten du hilkor sortu izanak eta ez du ikusten egiazko heriotzan ez dela izango beste bere bururik, bere buru hilari bizirik negar egingo dionik eta, bere hilotz etzanaren ondoan tente, bere urratzez eta erretzez penatuko denik. Xabier Amuriza

Askotan horrek **amorratu** egiten nau, niretzako idaztea hobbya izango balitz bezala, edo Haur eta Gazte Literatura lantzea zerbait "polita, inuzentea eta bitxia" izango balitz bezala hartzen dutelako. Ana Urkiza

Sukaldeko tresneria botatzeak **amorratu** zuen gehien. Agustin Otsoa

Bai, **amorratu** egin nindian horrek, baina gau hartan bertan eman behar zidaan erabateko erantzuna. Jon Muñoz

Bertzelako batean **amorratuko** ninduen. Aingeru Epaltza

Dena den, liztorrak, erleak bezalatsu, zirikatu edo **amorratuz** gero, eraso lezake ganadua. Patziku Perurena

Lanera hamabost minutu berandu iritsiko dela kalkulatu du **amorraturik**. Eider Rodriguez

Ulises, bien bitartean, jaten eta edaten ari zen, gosez **amorraturik**, isilik, hausnarrean, bere barruan ezkongaien galera ereiten. Juan Kruz Igerabide

Demagun D ereduko haurra goseak **amorratuta** doakiola, negarrez, andereñoari: [...]. Joxerra Garzia

Arratoi basatiak ziren, ausartak, goseak **amorratuak**. Koro Navarro

Goseak **amorraturik**, madarikatu egingo dute beren erregea eta beren Jainkoa. Elizen arteko biblia

Lotsaturik eta **amorraturik**, halako batez, odola zirakidala, hau esan nion: [...]. Patziku Perurena

Mendian bere umeak ostu dizkioten hartz-ama bezain **amorratuak** daudela. Elizen arteko biblia

Amorratuta atera nintzen antzokitik, Pantxo Reyren aurrean kazetari hasi berri bat bezala agertu nintzelako. Jasone Osoro

Moja gajoa ernegarazten jarri zen, **amorratuta** arrunt. Koro Navarro

Kale borrokan, polizia infiltratuek xaxatzen dituzte, batetik torturak eta sakabanaketak **amorratutako** gazteak, eta bestetik betiko kirten sutsuak. Markos Zapiain

Erdi ikaratuta, erdi **amorratuta**, Harry ikusi ere egingo ez balute bezala jokatzen zuten. Iñaki Mendiguren

Imajinatu egoera: Mutila zutik neskari begira, hautsonzia zigarro-muturrez beteta, eta Carme, **amorratuta**, minduta, dena pikutara bidaltzeko prest, Mutilari begira. Antton Olano

Nik orduan eta gehiago eutsi haren erasoei, hura **amorratuago** zegoen. Anjel Lertxundi

2 (era burutua izenondo gisa)

Neskak, kateme **amorratu** baten tankeran, lodiarengana apuntatu, eta dinbi-danba, bi tiro egin ditu segidan kanoi motzeko Franchiarekin. Patxi Iturritegi

Manueltxo izeneko mutiko bat hemen itxita eduki ziaten zakur **amorratu** batek koska egin eta zakur bihurtu zelako. Bernardo Atxaga

Eskailerak jauzika jaitsi nituen, harrapakinaren atzetik doan zakur **amorratuaren** gisan. Juan Kruz Igerabide

Badakit, ni joatean, artaldeari barkatuko ez dioten otso **amorratuak** sartuko direla zuen artera. Elizen arteko biblia

Orduantxe agertu da lasterka eskolatik Munnings jauna, zezen **amorratu** baten modura orroka. Mirentxu Larrañaga

Apaiza izateaz aparte, ehiztari **amorratua** zen Mateo, beti zakur gorri batekin batera eta bestera ibiltzen zena. Pako Aristi

Ez naiz edale **amorratua**, baina gizon baten bizitzan, une batzuetan, janaria baino elikagarriagoa izaten da alkohola. Oskar Arana

Edale **amorratua**, edale konpultsiboa, edale solidarioa, edale errukiorra, edale zintzoa. Anjel Lertxundi

Tobias Wolffen liburu bat oparitu zion ezagun batek: orduz geroztik egile horren zale **amorratua** bihurtu da. Iban Zaldua

Nolanahi ere, ez naiz bestelako pastelen zale **amorratua** ere. Mirentxu Larrañaga

Astapotro ero **amorratu** bat, burmuina kokainaz edo anfetaminaz gainezka. Karlos Zabala

Talibanak, gaizto **amorratuak** izanik ere, beren idealen alde ari dira. Joxerra Garzia

Udako sapak landarez eta hosto zimurtuz betetako jardina erretzen zuen, ezkutatu baino lehen landaredi osoari su emango liokeen piromano **amorratu** baten gisara. Xabier Olarra

Filologo edo hitz-maite ona, izan ere, fidakaitz eta sinesgogor **amorratua** baita dotrinanteekiko, fedekalte eta fedegalgarria. Iñaki Segurola

Madarikazio guztiok, berriz, pertsegitu izango zaituzteten etsai **amorratuen** gainera botako ditu Jaunak zuen Jainkoak. Elizen arteko biblia

Batere neurritasunik gabe, otsoa ardietara bezala joan zen, eta, begi basatiz eta aurpegi **amorratuz** begiratzen ziola. Askoren artean

Ai, nola sumintzen nintzen zure kontra gauza horiek guztiak burutzen zenituenean, emagaldu **amorratuenak** bezala jokatuz! Elizen arteko biblia

Erabat adoretuak eta kemenez beteak, prest zeuden gizonei ez ezik, basabererik **amorratuenei** eta burdinazko harresiei ere erasotzeko. Elizen arteko biblia

Ezerk ez zuen geldiarazten: ez emakume zaharrak suhi iheslariaren kontra botatzen zituen madarikazio **amorratuek**, ez Yonsuk andrearen gelako otoitz amaigabeek, ez etxe guztia bustitzen zuten negar-zotinek ere. Juan Kruz Igerabide

3 (era burutua izenondo gisa, irud/hed)

Behean, ur beltz beldurgarrien orroa; eta zubia, ezpata bezain zorrotza; bestaldean, bi lehoi **amorratu**. Juan Kruz Igerabide

Otso guztiek horzkada **amorratua** duten bezala eta bele guztiek atzaparra, sugegorri guztiek dute pozoi hilgarria. Anjel Lertxundi

Alde batera eta bestera hasi zen gelan, gero eta bere onetik atereago, erritmo **amorratuan**. Fernando Rey

Nire zelatan egon zara?, galdetu zuen Napumoceno jaunaren ahots **amorratuak**. Bego Montorio

Abasen hizketa moldeak Hamidaren izaera pipertua piztu zuelarik, lehengo lotsari eta zuhurtasunari utzi, eta errabia **amorratu** hura gailendu egin zitzaion egunean zehar bildutakoari. Patxi Zubizarreta

Besakadaz joka darabil, orpo-kolpeka, aparra aterarazten dio, eta, erdi-erdian jarrita, beldurgarri, ertzetara bidaltzen ditu olatu **amorratu** saldoak. Itziar Otegi

Balea setiatu bati aurre egitera doan arpoilari baten su **amorratua** zeukan begiradan. Anjel Lertxundi

Ehiza-txakurrek berehala erakutsi ziguten bidea, zeren eta, leize bazterretik beheiti beha jartzen zirela, zaunka **amorratuan** hasi baitziren... Joan Mari Irigoien

4 ***goseak amorratzen egon*** *(corpusean ez dago; ETCn **215** agerraldi)*

Igandeko bazkariaz geroztik nintzen kasik ahamenik hartu gabea, eta **goseak amorratzen nengoen**. ETC-literatura, saiakera

Ontziko hornidura guztiak amaitu zituztenean, arrantzan eta hegazti-ehizean hasi ziren, **goseak amorratzen zeuden** eta. ETC-literatura, saiakera

Harry, bat-batean **goseak amorratzen zegoela** konturaturik, eskueran zuen guztia hartu eta jaten hasi zen. ETC-literatura, saiakera

Goseak amorratzen nengoen. ETC-literatura, saiakera

Berak salbatu egiten zituen arrainak eta salbatu egiten zuen hainbat jende ere **goseak amorratzen zegoena**. ETC-literatura, saiakera

Eltzekari usainak gogorarazi zien **goseak amorratzen zeudela**, eta emakumeak adierazitako egurrezko eserlekuan jarri ziren, tximiniaren alboan. ETC-literatura, saiakera

-Goseak amorratzen nago -diozu. ETC-literatura, saiakera

Itxura aparta du entsaladak eta **goseak amorratzen daude** mahaikideak. ETC-prentsa

Baina **goseak amorratzen zeuden** bilbotarrak, eta bigarren zatian, amorrazioz ekin zioten kantatzeari. ETC-prentsa

Baina pelotoiaren barruan **goseak amorratzen zeuden** esprinterrak. ETC-prentsa

Azkenean, diot, aurreko hilabeteetan, botere **goseak amorratzen dauden** alderdi espainiarrek hori baino ez baitute buruan (eta ahoan) izan. ETC-prentsa

Gaztelugaineko txabolan hamarretakoa egin ahal izango dute, txorizoa eta salda hartzeko aukera izango dute besteak beste **goseak amorratzen dauden** guztiek. ETC-prentsa

5 ***gosez amorratzen egon***

Txerriaren saltxitxa eman zion jateko, **gosez amorratzen dagoenarentzat** infernuko etsaia, baina ez berak eta ez bere urdailak ez zuten protesta egin. Anton Garikano

Ez dira gau ondo ilun batean inongo atea jotzeko orduak, baina hotzak mikaztuta eta **gosez amorratzen dago** Jose. Anjel Lertxundi

6 *txakur amorratu*

Etengabe aritzen zen jolasean, zuek **txakur amorratuarena** edo marigorringoarena egiten denbora galtzen duzuen bitartean. Julen Gabiria

Eta jendea boxeolariei xaxaka, oihuka, **txakur amorratu** eta odolgosetuen arteko borroketan bezala, aurkaria akabatzeko eske. Paddy Rekalde

Triste nengoen, eta sutan nengoen, **txakur amorratu** bat bezala, ohera joan nintzenean. Joan Mari Irigoien

-Txakur batek hozka eginez gero, erotu egiten da bat, **txakur amorratu** bihurtzen da, eta jende guztiari hozka egiten dio. Juan Kruz Igerabide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **amorratu bat bezala** (5); **amorratu batek koska** (3); **amorratu baten** (14); **amorratu bati** (4); **amorratu bihurtu** (4); **amorratu egin** (6); **amorratu egiten zen** (5); **amorratu hori** (3); **amorratu zen** (3); **baina amorratu** (3); **ero amorratu** (3); **etsai amorratu** (10); **katu amorratu** (3); **piztia amorratu** (3); **txakur amorratu** (4); **zakur amorratu bat** (3); **zakur amorratu batek** (3)
>
> **amorratua bezala** (3); **amorratua da** (14); **amorratua eman** (4); **amorratua ere** (3); **amorratua ez** (3); **amorratua izaki** (4); **amorratua izan zen** (5); **amorratua izango** (3); **amorratua izanik** (4); **amorratua naiz** (5); **amorratua omen zen** (3); **amorratua zela** (3); **defentsa amorratua** (3); **edale amorratua** (3); **ehiztari amorratua** (9); **erretzaile amorratua** (4); **etsai amorratua** (10); **futbolzale amorratua** (3); **irakurle amorratua** (7); **jazz zale amorratua** (3); **karlista amorratua** (4); **kontrako amorratua** (3); **langile amorratua** (4); **mendizale amorratua** (4); **su amorratua** (3); **zakur amorratua** (3); **zale amorratua baitzen** (6); **zale amorratua zen** (5)
>
> **gero eta amorratuago** (4)
>
> **amorratuak bezala** (7); **amorratuak dira** (5); **etsai amorratuak ziren** (3); **zakur amorratuak** (3); **zale amorratuak** (8)
>
> **zakur amorratuaren** (4)
>
> **zakur amorratuen** (5)
>
> **amorraturik nago** (3); **goseak amorraturik** (3)
>
> **amorratuta dago** (4); **amorratuta daude** (5); **amorratuta erantzun** (3); **amorratuta zegoen** (4); **ere amorratuta** (3); **zuen amorratuta** (3)
>
> **amorratzen dago** (5); **amorratzen dagoela** (4); **amorratzen egongo da** (3); **amorratzen egoten** (4); **amorratzen jarri** (3); **amorratzen nau** (3); **amorratzen zegoela** (4); **egiteko amorratzen** (4); **gehien amorratzen** (3); **goseak amorratzen nago** (4); **goseak amorratzen nengoen** (6); **goseak amorratzen zegoen** (3); **gosez amorratzen** (3); **horrek amorratzen du** (3); **jokatzeko amorratzen** (3)

---

amorratuki *adlag* amorruz.

Amorratuki ari dira, beren jabeen traizioaren salatari. Xabier Montoia

Aldizkarien Aldizkaria duzu, hura zeinak, Kimika Kimika denetik, laburpen **amorratuki** hitz gutxikoz munduko aldizkari guztietan argitaratzen diren kimikaren inguruko artikulu guztiak. Juan Garzia

Era berean beste gauzak argitzeko onura ere badu, adibidez, alde baten bero gartsua eta bestearen baieztapen hotza, edo alderdi bati gustura onarpen kontenta eman eta aurretiaz bestearen aurka **amorratuki** ekitearen zergatia. Ibon Uribarri

---

amorrazi ik **amorrarazi**.

---

amorraziño ik **amorrazio**.

---

amorrazio *(orobat **amorraziño** g.er.)* **1** *iz* amorrua.

Sortu zitzaidan **amorrazio**, egonezin, tristura eta auskalo-zer-gehiagoren sentimendu bulkada haren eraginez, ohetik jaiki behar izan nuen. Patxi Zubizarreta

Moktada al Sadren matxinadak eta lortu duen sostenguak hori agertu dute, **amorrazioa** eta inpotentzia bideratzen jakin baitute. Berria - Mundua

Neke, **amorrazio** eta negarraldiak ere izan ditut, baina gehien irabazi duena neu izan naiz. Berria - Kultura

Amorrazioa eta sentimendu negatibo guztiak bazterrera utzita. Joan Mari Irigoien

Auzipetuen eta abokatuen ahotik sumarioari buruz xehetasunak zuzenean entzun ondoren, diputatu gehienek agertu zuten harridura, guztiek kezka eta, batzuk, **amorrazioa**. Berria - Euskal Herria

Oso ongi konturatzen ginen, gaixo kronikoentzako gurearen moduko erietxe batean, non melankolia, **amorrazioa**, etsipena eta halako sentimenduak ezari-ezarian egosi eta nagusitu ohi diren, Gregek zuen balioaz, ez baitzuen, itxuraz, umore txarrik. Xabier Olarra

Ustekabea eta **amorrazioa** uztartzen zituen imintzioa egin zuen gizonak. Patxi Zubizarreta

Zeppelina puntu txiki-txiki bat bihurtu zenean, ohe gainera itzuli nintzen, eta **amorrazioa** eta ernegazioa sentitu nituen berriro. Anjel Lertxundi

Ofizioan **amorrazioa** eta ernegatzea besterik lortzen ez duzun bitartean, afizioan gozamena eta asebetea. Patziku Perurena

Pashak hura aditu zuenean, **amorrazioak** hartu eta oihuka hasi zen. Fernando Rey

Gauzak jaurtitzen dizkiot -lisaburdina, irabiagailua, zartagina, edozer-; gauzak botatzen ditut bat-batean, **amorrazioak** hartu banindu bezala. Xabier Olarra

Amorrazioa ematen dit negar egiteak, baita inork ikusten ez nauenean ere. Anjel Lertxundi

Amorrazioa eman zion emazteak gogor egin ez izanak. Anton Garikano

Lo egin ezinik, **amorrazioa** sentituko dut Dabid Loti Ederra baino lokartuago dagoela imajinatzean, izan ere hark egundo ez baitu arazorik izan lo egiteko. Patxi Zubizarreta

Luzaroan egon naiz zuei idatzi ez idatzi, baina azkenean eta, lehertuko ez banintzen, luma hartu behar izan dut nire haserrea eta **amorrazioa** adierazteko. Patxi Zubizarreta

Pila hartan aztarrika ari zela, bere buruari **amorrazioa** hartu zion hain fidakorra izan zelako. Anton Garikano

Nire **amorrazioa** isilean janez ni. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere buruaz jabe egin, eta eutsi egin zion bere **amorrazioari**. Patxi Zubizarreta

Bera negarrez hasteko zorian zegoen eta ni **amorrazioari** eutsi ezinik, ederra! Anjel Lertxundi

Abailduratik zehaztapen irrigarri batera, gogo adeitsu batetik **amorraziora**, gero eta usuagoak zituen bere kabutako bat-bateko aldarte-aldaketa haiek. Anjel Lertxundi

Badut **amorraziorako** aski motibo, baina oroitzapen batekin bukatu nahi nuke gaurkoa, oraindik ez bainago batere santu: [...]. Anjel Lertxundi

Kalte egin dizula eta, ez gorrotorik izan lagun hurkoari, ez egin ezer **amorrazioaren** eraginez. Elizen arteko biblia

Karta sorta hartu eta lurrera jaurti zuen bere arrebak, **amorrazioz**. Harkaitz Cano

Ron bost minutu geroago elkartu zen haiekin, **amorrazioz** sutan. Iñaki Mendiguren

On Camillok eserlekuaz eskobatu zituen sei haiek **amorrazioz** lehertzen geratu ziren, eta tabernan garraxika ari ziren eroen modura. Koldo Biguri

Amorrazioz beterik ukabilkada batez ispilua txikitu, eta sekulako mina hartu zuen. Xabier Olarra

Pala airean hartu eta, **amorrazioz**, kolpe lehor bat eman nion bizkarrean. Anjel Lertxundi

Amorraziozko madarikazioak botatzen hasi ziren haiek zapaldutakoan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zehar-begiratu ilunekin eta **amorraziozko** marmarrekin, ikasleek liburuak zabaldu zituzten. Iñaki Mendiguren

Ez zuela benetako hitzik erabili, **amorraziozko** hots sail zabal bat baizik. Xabier Olarra

Hartara, ordubeteko atzerapentxoaren truke lortzen zuten ama biek negar algara **amorraziozkoak** isilaraztea. Xabier Montoia

Baziren hamar urte baino gehiago tindatzen hasi zenetik, **amorrazioaren amorrazioaz**, gatazka horretan borroka egiteko baizik jaio izan ez bailitzan. Jon Alonso

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Amorrazio etsiaren unean, txapelgorriak eta mikeleteak madarikatu nituen: [...]. Txillardegi

Behin ere baino etsipen eta **amorrazio** handiagoarekin, gainera, zeren ikastetxetetik botata baitzegoen ordurako. Bernardo Atxaga

Amorrazio beltzak harturik, ezpata atera eta, sastakada bakar batez, biei moztu zien burua. Patxi Zubizarreta

Txapela ikatzetara bota, ikazkinak emandako pala airean jaso eta aurreko hormaren kontra jaurti nuen **amorrazio** osoz. Anjel Lertxundi

Igandeko derbian, Iraolak 3-3koa sartu zuenean, telebista kamerek **amorrazio** betean harrapatu zuten Jesus Mari Zamora zuzendaritzako kidea, alkandora lurrera botatzen, juramentuka. Berria - Kirola

Nik neuk hau ulertzen dut: tipo bat tematzen bazaizu oin-puntak zapaltzen, **amorrazio** ederra ematen dizu, jakina. Xabier Olarra

Badakizu **amorrazio** izugarria didala. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina hura berri laburren atalean ipini izanak ekarri dizu **amorraziorik** handiena. Lutxo Egia

· Behin, bolantean Herbert zihoala, berealdiko **amorrazioa** hartu eta hantxe sartu zen, motorrari dena emanda, buruz buru, putre-samalda beltzaren erdira. Joxe Austin Arrieta

Izugarrizko **amorrazioa** eman zion marrazkiak, eta gero rantxora itzuli ginenean argazki zahar bat erakutsi zidan, Obaban kirol zelaia inauguratu zuten egunekoa. Bernardo Atxaga

Ikaragarrizko **amorrazioa** ematen dio latinezko hitzak entzutea, nik naturaltasunez botatzen ditudan arren. Ramon Saizarbitoria

Garrasi egin zuen, birao ere bai, eta harrika ekin zien txoritzar beltzei, ezin eutsizko **amorrazio** betean. Joxe Austin Arrieta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Smithers andrearenganako **amorrazio** pixka bat sentitu nuen. Fernando Rey

Kontzentrazio haietan, hildakoen omenezko isiluneak eta **amorrazio**-oihuak eskutik eskura ibili ziren. Txema Ramirez de la Piscina

Eta agian tunelaren alde biak zulatzen ari ziren langileek elkarren **amorrazio** oihuak entzun ere entzungo zituzten, lurraren eta arrokaren bestaldetik. Harkaitz Cano

Sofiak **amorrazio** keinua egin du, aulkian tente jarrita: "Ergela ez bestea!" Badaki ez dela harrapatzeko gauza izango, eta, haserreak eraginda, azal zuriaren azpiko zain urdinxkak bihotz taupaden erritmoan puztu zaizkio. Patxi Iturritegi

Amorrazio-kutsua ezin bazterturik, beste orri bitxi bat hautatu nuen mordoska hartan. Txillardegi

Zartakoak, halaz guztiz, txiki-txiki eginda utzi du Virgil, eta **amorrazio**-eztandei leku ematea eragin. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Harroputza builaka hasi zen aitona alu batek agure-**amorrazioaz** zapaltzen zizkiolako behatzak. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amorrazio beltzak harturik (4); **amorrazio handia** (3)

amorrazioa eman zien (3); **amorrazioa ematen dit** (3); **amorrazioa ematen zion** (4); **amorrazioa ere** (3); **amorrazioa hartu** (3); **amorrazioa sentitu** (3); **amorrazioa sentitzen** (3); **aurkako amorrazioa** (3); **nire amorrazioa** (4)

amorrazioz beterik (3)

---

amorraziopean *adlag* amorrazioak hartuta.

Oraindik Anarekiko hitzordu geroratuak ematen zidan **amorraziopean** iritsi nintzen Josurenera. Aingeru Epaltza

---

amorreri *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi) iz* errabia.

Zenbat **amorreri** bizi liteke gure baitan? ETC-literatura, saiakera

1882. urtean hasi zen Pasteur **amorreria**, errabia, ikertzen. ETC-prentsa

Antraxaren ondoren, **amorreriaren** txanda izan zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amorrita *izond/iz* antzinako herri nomada bat.

"Lau Eskualdeetako Erresuma" sumerikoan Ur-etik gobernatzen zuten sumertar enperadoreen mende bildutako kode goiztiar bat izan zen, dirudienez, inperioa berriro ezarri zuen Babiloniako Hamurabi **amorritak** geroago promulgatu zuen kodearen oinarria, K.o. 1901ean Mendebaldeko arkeologo moderno J. de Morgan-ek argitara atera zuena. Iñaki Mendiguren

---

amorru *(ETCn **17.903** agerraldi)* **1** *iz* haserre bizi eta oldartsua.

Amorruaren leungarri, protesta bat egiten saiatu zen: Enbaxadatik ekarri dizkidatela ziurtatu didate. Jon Alonso

Suhiaren ibilerak gorabehera, diskrezioa gordetzeko gai izan zen ezkontzako lehen urteetan, baina haren alaba txikiak ihes egin zuenean, bere **amorru** guztia -eta handia zen benetan- zuzendu zuen Donatienen aurka. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hunkipena eta **amorrua** sentitu ditu nahasian Gabinek, orain arte ez al zara konturatu? Iñaki Iñurrieta

Lankidea, ordea, sarriegi gaixotzen dela iruditzen zaio, eta **amorrua** sentitu du bi pertsonaren artean egitekoa den lana bakarrik egin beharragatik. Eider Rodriguez

Interneten ikusgai jarritako edizioan honela zioten: Azalera dezagun gure **amorrua** eta zabal dezagun Gasteizen barrena. Txema Ramirez de la Piscina

Hor amaitu ohi zen historia, eta niri izugarrizko **amorrua** pizten zitzaidan orduan faxisten kontra, haiexek izan baitziren gerra haren xaxatzaile eta azkenean irabazle. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta malko erretan gainez egindako **amorruak** bultzata, arma patioko harrietan marinel hordituen antzo zabuka aireratu ahal izan dugu, asmoa gure esku, Vladimir. Koldo Izagirre

Morokilez bete nuen ahoa, **amorruari** kanporabidea emango nion beldurrez. Irene Aldasoro

Berrikitan, adibidez, Laxmanpur Bath herrixkan (Bihar eskualdean) goiko kastako 200 bat lagun, pistolak eta rifleak hartu eta iluntzean zelatan jarri ziren, **amorruak** itota. Gotzon Garate

Sentitzen nuèn **amorrua** erraietatik atera zitzaidan: Joan Mari Irigoien

Nire **amorrua** azalean zegoen, eta, une batez, suz inguraturiko izotz puska bat, arrautzopil sorpresadun bat nintzelako irudipen tristea izan dut. Monika Etxebarria

Horregatik, Gelatxok ez zuen guk haren piezarik grabatzerik nahi izaten, hartzen zuen **amorru** bat! Pako Aristi

Ez zekien zenbateraino bihurtu zitzaion zainaldi bere **amorrua** eta mendeku-gosea. Xabier Olarra

Hari erantzunez bere **amorrua** hustuko zukeen. Josu Zabaleta

Ximurraren bisaian **amorruak** tarte bat utzi zion ez-sinetsiari. Aingeru Epaltza

Nik ere, zuk bezala, Markos, **amorrua** eta gorrotoa sentitu ditut pisukidearen aurtengo portaera dela eta. Jon Arretxe

Amorruak hartu ninduen, eta ez dakit zelakoak esan nituen. Jokin Urain

Agian horrelakoetan, beso gihartsudun etorkin poloniar, italiar eta afrikar saldoek oihu egingo zuten norberak bere hizkuntzan, elkar ulertu gabe, dezepzioak eta **amorruak**

jota. Harkaitz Cano

Halako lotsa halako laido halako hastio halako ahalke halako **amorrua** sortu zait erraien zuztarretan, non ihes egin baitut atzerantz, ahal nolaka, ziegarantz. Koldo Izagirre

S. Nicolautik itzuli zenean, alabaina, hura bai hura **amorrua**. Bego Montorio

-Agian -esan zuen urduri, isekaz eta **amorruari** eutsi ezinik-, zure sumin zuzen hori pittin bat baretzen denean, agian iritsiko zait azkenean nire ogia. Anton Garikano

Badaezpada ere ez zen ausartu Tete txikiari begiratzen, haren **amorruaz** jakitun. Urtzi Urrutikoetxea

2 gogo bizia.

Bitarte horretan guztian, hitz bat ere ez niri, ezta begiradarik ere; lanerako **amorru** hark niri zerbait esatetik edo nirekin detaileren bat izatetik libratuko balu bezala. Anjel Lertxundi

Azken finean dualismoak ez du Singular Absolutuaren "Ni ez" oro suntsitzeko **amorru** horixe besterik ezkutatzen! Joxe Azurmendi

Eta beste aukera, urrutiko parajeak ikusteko **amorrua** dakarrenarentzat, "mundua ezagutzea" da (ikaragarri entretenitzen da gaur gaztea mundua ezagutzen, merkatuak aukera horren jabe egin duenetik), han-hemengo bazterretako kontu mordo bat irentsiz munduak hobeki irents dezan. Iñaki Segurola

Sorkuntza literarioa ez du erabat baztertua, baina ez zaio idatzitakoa argitaratzeko **amorru** handirik igartzen. Berria - Kultura

3 eritasun kutsakorra ik **errabia 5**.

Ondorengoak, ohikoak: medikuarengana presaka, **amorruaren** eta tetanosaren aurkako txertoak, sendaketa luze samarrak. Xabier Mendiguren Elizegi

Aventis Pasteur enpresak **amorruaren** aurkako milaka txerto kendu ditu merkatutik, sorta batean gaitza eragiten duen birusa bizirik aurkitu baitute. Berria - Gaiak

Fiskalaren arabera, ordea, **amorrua** izan zen txakurra hiltzeko arrazoia. Berria - Gaiak

4 (izenondoekin)

Amorru burrunbatsua eta zorrotza. Fernando Morillo

Halako **amorru** sor bat sentitu nuen sabelean hazten. Alberto Ladron Arana

-Madarikatuak izan zaiteztela zu eta lo dagoen printzesa - esan zuen Justinak, hitz beltzez, **amorru** beltzez, begi beltzez. Felipe Juaristi

Hire indarra nahi diat, borroketan erakusten huen erasoa, **amorru** itsua. Paddy Rekalde

Amak neskatxo bat balitz bezala tratatzen nau, eta **amorru** handia ematen dit horrek. Josu Zabaleta

Garaiko giroaren adibide moduan, Alborg-ek - espainolen konplexu eta **amorru** antifrantsesa berak aipatzen ditu - hau dakar Gallardo-ri buruz, eta liberal porrokatua zenuen: "xxxx". Joxe Azurmendi

Izterreko eskua azpiko gonan gora zihoakion bitartean Anjelmari salatzen zuen ahots adurti batek "Eukeniii" esan zion mutur ondoan; beldur bizia **amorru** basati bihurtu zitzaion eta sudur zuloek, ireki eta itxiz, berebiziko orroa egin zuten: brmmrr, brmmrr, brmmrr. Xabier Mendiguren Elizegi

- Mekaben! - gizonak hura aditu zuenean, jo dik semeen koartora, hartu dizkik ohetik hiru semeak arrastan, eta **amorru** gorrian emaztearen aurrera! Patziku Perurena

Amorru itzela sentitu zuen une horretan eta, ezpata lekatik aterata, emakumea atoan hiltzeko asmoz abiatu zen harantz. Jon Arretxe

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kapitaina, bitartean, egunero bezala, animaliak zenbatzeari lotuta zegoen, desgogoz eta **amorru** sentsazio batez. Josetxo Azkona

"Nire baitan nobelak ditudala sentitzen dut eta zuk atera egiten dizkidazula", erantsi zuen **amorru** puntu batekin, nire nobela berria airean astinduz. Joxean Agirre

Taxistak **amorru** keinu bat egin zuen, kanbiorik gabe geratuko zela esanez. Unai Iturriaga

Zurbil, **amorru** dardaraz, aurrean harrapatzen zuen guztia ostikoka eta ukabilka hankaz gora irauliz, otsoa artaldean bezala sartu zen doktorea umeteria haren erdian. Josu Zabaleta

6 *amorru bizi*

Hitz haiek zeozer ezkutatzen zutelako burutapena ziurtatzean, **amorru bizia** sentitu zuen. Joxemari Urteaga

Berehala utzi zuen inolako kalterik egin gabe, **amorru bizitan** alde eginez. Askoren artean

Takateko bat aditu zen, eztanda txiki baina bere sikuan **amorru bizikoa**, potoa zati-zati egin zen (zorionez, bular parean nerabilen, eta ez gorago), eta hantxe geratu zitzaidan eskuan, sinbolo sarkastiko modura, potoaren ipurdiko beira-uztaia. Juan Garzia

Horregatik, ospitalean beilan geundela, guardia zibilaren Komandantziatik lore koroa bat zekartela jakin zuenean, sutan jarri zen gajoa, **amorru bizian**; eta joko zuen mandataria beilan zeuden Fernández de Leundatarren zaharrenak eta biok eragotzi ez bagenio - hura loradendako mutila zela eta ez zuela errurik esaten genion -. Ramon Saizarbitoria

Hargatik, kexazko marmar bat sortu zen lehenbizi, aparteko neurri horien kontra, eta **amorru bizizko** garrasi bihurtu zen gero. Karlos Zabala

Amorru biziz ekin nion lanari, ez dakit zenbat denbora egingo nuen idazten. Anjel Lertxundi

Amorru bizian noa pedalei eraginez. Eskarne Mujika

Ohe gainean eserita, teilapean, **amorru bizian** zegoen Léa. Jon Muñoz

Amorru bizian, santuari heldu eta handitxoak esan dizkio, eman dizkio zartada ederrak altzari eta hormen aurka, eta bota du azkenik leihotik behera. Pako Aristi

"Hiri osoa etxez etxe arakatu behar badut ere, aurkitu eta akabatu behar dut! ", pentsatu zuen **amorru biziz**. Aritz Gorrotxategi

Hori ikustean, sutu egin zitzaion barrua Matatiasi. Legearekiko maiteminak eraginik, **amorru bizian**, lasterka joan eta lepoa moztu zion judu hari aldare gainean. Elizen arteko biblia

Hezleak zigorrari eragin zion, eta zakur guztiak **amorru bizian** hasi ziren zaunkaka eta uluka. Koro Navarro

-Matxinatu dira, matxinatu dira - zioen **amorru bizian**. Fernando Rey

-Baita zera ere...! - Karmelek, **amorru bizian**. Joan Mari Irigoien

-Ontzi honetan sartu hintzen momentuan igarri nian; adur txarrekoa haiz - nire amorruari **amorru biziagoz** erantzun zion -. Edorta Jimenez

Baina emazteak eta alabak **amorru biziaz** egin zioten kontra, eta frantsesez egitea lortu ere bai: "Nous, ici, on n'est plus des paysans abrutisøø. Txillardegi

7 *amorrua eman*

Amorrua ematen dit ardura honek orain. Agurtzane Juanena

Dursley jaunari **amorrua eman** zion ikusteak haietako bi ez zirela batere gazteak; bai zera!, gizon hura bera baino zaharragoa izango zen, eta esmeralda-koloreko kapa berdea zeraman. Iñaki Mendiguren

-Badakit ondo zer dagoen dantzalekuetan, baina **amorrua ematen** dit! Pako Aristi

Amorrua ematen zidan detaile txikiengatik puntuek ihes egitea, eta hori kontrolatzen jakin ez izatea. Berria - Kirola

"**Amorrua ematen** dit horrenbeste urtez luzatzen ari den gatazkaren aurrean jendeak beste alde batera begiratzea. Berria - Kultura

Baina hura ez zen inoiz amaituko, eta ama beheak jota ikusteak Denverri lotsa eta **amorrua eman** zion. Anton Garikano

Eta honek **amorrua eman** zidan. Txillardegi

Baina Carlosi benetako **amorrua eman** ziona zera izan zen, agure lizuna (Graçak barre egiten zien hildako bati buruz esandako hitz potolo haiei) tematu egin zitzaiola lan serio eta produktibora lot zedin. Bego Montorio

Amorrua ematen du horrek, engainatuta sentitzen da norbera, baina kontuan hartuz gero gure soldatak hemengoak baino hamar bider handiagoak direla, ulergarriagoa begitantzen da araua. Jon Arretxe

Horregatik, **amorrua eman** zidan, eta nazka ere bai, historiaren orrietatik bere izena ezabatu zutela justifikatzeko, gizajoari azken finean bera txoferra baino ez zela aditu beharrak. Ramon Saizarbitoria

Andresi **amorrua ematen** zion don Pedrok ama horrenbeste aipatzeak, eta behin baino gehiagotan erantzun zion bortizki, hildakoak bakean uzteko esanez. Josu Zabaleta

Amaz pentsatzen nuen eta **amorrua ematen** zidan inork emakumeez modu horretan hitz egiteak. Alberto Ladron Arana

Amorrua ematen omen zion etxean kartoi bat izanda makinan erosten ibili beharrak. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

amorru betean (5); **amorru bizia** (11); **amorru bizian** (57); **amorru bizian jarri** (5); **amorru bizitan** (8); **amorru biziz** (31); **amorru guztia** (11); **amorru handia** (12); **amorru handia ematen** (6); **amorru handiagoa** (6); **amorru handiagoz** (12); **amorru hori** (7); **baino amorru handiagoz** (5); **bere amorru** (9)

amorrua eman (12); **amorrua eman zidan** (8); **amorrua ematen** (34); **amorrua ematen dit** (7); **amorrua ematen zidan** (8); **amorrua hartu** (6); **amorrua sentitu** (9); **bere amorrua** (13); **halako amorrua** (5); **haserrea eta amorrua** (5); **kontrako amorrua** (6); **nire amorrua** (6)

amorruak hartu (7)

amorruaren amorruz (28)

amorruari eutsi (5)

amorrurik gabe (9)

amorruz begiratu (8); **amorruz bete** (6); **amorruz betea** (6); **amorruz beterik** (11); **amorruz beteta** (9); **amorruz jotzen** (6); **aurpegia amorruz** (7); **halako amorruz** (5)

---

amorrualdi *iz* haserrealdi bizia.

Tarteka -irakasleetako batek esan zidanez-, bat-bateko izualdi edo **amorrualdiak** jasango zituzten haietako batzuek, eta garrasika edo kolpeka hasiko ziren kontrolik gabe. Xabier Olarra

-PEEVES! -orro egin zuen Filchek, **amorrualdian** luma lurrera botaz-. Iñaki Mendiguren

Harryk bere burua dardarka sentitzen zuen, ez beldurrez, **amorrualdi** berri batez baizik. Iñaki Mendiguren

Harry **amorrualdi** bortitz bati aurre egiteko prestatu zen. Iñaki Mendiguren

Halako batean, bere **amorrualdi** isil haietako batek menderatu zuen eta bere onetik aterata egunkaria xehe-xehe egiten jarri zen. Fernando Rey

-Utikan! -egin zion Dembak marru, **amorrualdi** ulergaitzez-. Anton Garikano

Bidean zihoala, bat-bateko **amorrualdiak** eman eta ostikoz jota baztertu zuen aulki bat, traba egin ziona. Anton Garikano

Gerran zehar izan nituen halako **amorrualdiak**. Alberto Ladron Arana

Bazirudien Tomek bizitzaren aurreko jarrera zentzuzko, gogoetazko eta doi bat harridurazkoarekin eraman zuela bere gurasoen banantzearen hondamendia -bai eta arreba gaztearen nerabe- **amorrualdiak** ere. Oskar Arana

Stanislaus Demba bere **amorrualdietako** bati eusten ahalegindu zen, eta gogor egin zuen lasai mintzatzeko-. Anton Garikano

---

amorrugarri ik **amorragarri**.

---

amorruz 1 *adlag* amorruarekin.

Herbehereetako jokalariek **amorruz** ospatu zuten Alemaniaren aurkako garaipena, gehiegi agian. Berria - Kirola

Halako batean, pikotxean jarri zen sofaren gainean eta **amorruz** jotzen hasi zitzaion aurpegian. Fernando Rey

Isiltzeko agindu diet goxoki, baina zaunkaldiari eutsi diote **amorruz**. Txillardegi

Lurra **amorruz** estali zen. Fernando Morillo

Poztu egin nintzen hura errepikatu izanaz, hark bide ematen baitzidan atzera gerrikoa kendu eta itsua ederki astintzeko, **amorruz** eta irmoki oraingoan, buruan nahiz soin-adarretan. Karlos Linazasoro

Ez zidan erantzun; aitzurrean jarraitu zuen, **amorruz**. Ramon Saizarbitoria

Amorruz dagoen txakurrari bezala, lerdea zerion gazte hari ere. Jasone Osoro

Ateneak ez zeukan zer esanik eta, **amorruz**, txiki-txiki egin zuen bere aitaren arinkeria eta amodioak denen aurrean argitaratzen zituen oihal hura. J.M. Olaizola "Txiliku"

Begiz jo ninduzun orduan, eta ohartu zinen baneramala, eskuartean bildua baina ez osoki estalia, zuk, saiatuta ere, identifikatu ezin zenezakeen kolore zuriko zapi bat-edo, behin eta berriz **amorruz** estutzen nuena. Josetxo Azkona

2 *amorruaren amorruz*

Memok ezpata zorrotik aterea zuen, ezpainak hozkatuta, bibotea atzaparka kenduta **amorruaren amorruz**. Fernando Rey

Baina berak barre egin zuen ozenago eta zirikatzaileago, **amorruaren amorruz** begietan behera malkoak sumatu nituen arte. Eduardo Matauko

Ez al dizut esan, Peaceful andrea? -jarraitu zuen hizketan Mollyren amak, **amorruaren amorruz** ahotsak dar-dar egiten ziolarik. Mirentxu Larrañaga

Horrelako jainko batek geure onetik ateratzen gaitu **amorruaren amorruz**, eta betiko botako dugu ahanzturaren zokora, nondik Robespierre doilorrak atera nahi izan duen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Zuk -esango zion irakasleak hatzaz seinalatuz, bizarra, **amorruaren amorruz**, dardaratan zuela-, nola duzu izena? Josu Zabaleta

Karlos Ohando gaizkitu egin zen **amorruaren amorruz**. Koro Navarro

Amorruaren amorruz, eskopeta hartu eta osagilearengana tarrapataka joan zen. Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amorruz ari (3); **amorruz begiratu** (8); **amorruz begiratzen** (3); **amorruz bete** (6); **amorruz betea** (6); **amorruz beterik** (11); **amorruz dardarka** (4); **amorruz erantzun** (4); **amorruz esan zuen** (3); **amorruz estutzen** (3); **amorruz irakiten** (3); **amorruz orroka** (3); **amorruz sutan** (3); **aurpegia amorruz** (7); **egin zuen amorruz** (3); **esan zion amorruz** (3); **halako amorruz** (5); **haserre eta amorruz** (3); **kontra amorruz** (3)

---

amorruzko *izlag* amorruari dagokiona.

Amorruzko ukabilkada batez hautsi zuen erlojua. Joxerra Garzia

Amorruzko hitzak, mendeku-gogoak, gezurrak. Joan Mari Lekuona

"Beti Pajettarekin!, Pajettarekin!, Pajettarekin! ", esaten zuen gure aitak, izen hura **amorruzko** lastertasunaz errepikatuz, adierazi nahian, seguruena, nolako lastertasunaz ihes egiten zuen Albertok etxetik. Fernando Rey

-Weiner! -egin zuen marru Dembak, eta **amorruzko** atake batek eman zion, Weinerrek ez ziola entzun nahi ikustean. Anton Garikano

Hedwigen kaiola ere airean atera eta erori zenean zabaldu egin zen; hontza irten egin zen, eta **amorruzko** txilio ozen batekin gaztelurantz bideratu zen ziztu bizian, atzera begiratu ere egin gabe. Iñaki Mendiguren

Hala, Baby Suggs dohatsua -bere bizitza librea harmoniari eskaini ziona-, harrokeria, beldur, kondenazio eta **amorruzko** dantza batekin ehortzi zuten. Anton Garikano

Amorruzko eta minezko aurpegia jarri zitzaion dama zuriari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nire arnasestua eta berea, otsoaren **amorruzko**, hirazko arnasestua. Jon Maia

Amorruzko gihar-uzkurtze batek estutu zion unetxo batez eztarria, eta, pasatu zitzaionean, egarri bizia utzi zion. Irene Aldasoro

Ez zen **amorruzko** begirada: malko gorri handi bat agertu zitzaion, txakur leialengatiko pena sentiarazten diguten malko horietako bat. Julen Gabiria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amorruzko begirada (3)

---

amortar **1** *izond/iz* Canaanen seme Amorreoren ondorengoa dena; Amorreoren ondorengo herritarra.

Lagun iezaguzu, mendialdean bizi diren errege **amortar** guztiak gure kontra elkartu baitira. Elizen arteko biblia

Horrela bada, Jordanez bestaldeko, ekialdeko, bi errege **amortar** haien lurraldeak eskuratu genituen, Arnon errekatik Hermon mendiraino. Elizen arteko biblia

Zuen esku jartzen ditut Sihon, Hexbongo errege **amortarra**, eta beronen lurraldea. Elizen arteko biblia

Gilgaldik atera eta, gau osoan ibili ondoren, ustekabean eraso zien Josuek errege **amortarrei**. Elizen arteko biblia

Beraz, Jaunak zeuen Jainkoak agindu bezala, erabat suntsituko dituzue hitiarrak, **amortarrak**, kanaandarrak, periztarrak, hibiarrak eta jebustarrak. Elizen arteko biblia

Jerusalem! Kanaandarra zara jatorriz eta jaiotzaz; aita **amortarra** zenuen, ama hitita. Elizen arteko biblia

Israeldar ez ziren hitita, **amortar**, periztar, hibiar eta jebustarren artetik bizirik gelditu zirenak. Elizen arteko biblia

Askatu egin zituen Israelek bere eskualde haiek filistearren menpetik. Israeldarrak eta **amortarrak** ere bakean bizi ziren beren artean aldi hartan. Elizen arteko biblia

Moisesek zenbait gizon bidali zituen Jazer hiria ikertzera, eta israeldarrek Jazer eta inguruko hiriak eskuratu zituzten, beraietako **amortarrak** jaurtikiz. Elizen arteko biblia

Bai eta kanaandarren lurralde osoa ere, sidondarren Aratik Afekaraino eta **amortarren** mugetaraino. Elizen arteko biblia

Jordanez bestaldean bizi ziren **amortarren** lurraldera ekarri zintuztedan. Elizen arteko biblia

Abia zaitezte eta joan **amortarren** mendialde eta inguruetara. Elizen arteko biblia

Egun hartan, zure hiri gotortuak hutsik geldituko dira, behinola, israeldarrek erasotzean, hibiarren eta **amortarren** hiriak hutsik gelditu ziren bezala. Elizen arteko biblia

Geber, Uriren semea, Galaad lurraldean, **amortarren** errege Sihon-en eta Baxango errege Og-en lurralde izanikoan. Elizen arteko biblia

Israeldar ez ziren **amortar**, hitita, periztar, hibiar eta jebustar jende haietatik bizirik gelditu zirenak. Elizen arteko biblia

2 (izenlagun gisa)

Bere egoitza Hexbonen zuen Sihon **amortar** erregearen hiri guztiak amondarren mugetaraino. Elizen arteko biblia

Arnon errekatik Jabok errekara arteko eta basamortutik Jordan ibaira arteko **amortar** lurralde osoa hartu zuten. Elizen arteko biblia

---

amortiguadore *iz* motelgailua.

Autoak ez dauka intermitenterik, baina handia da, indartsua, leun-leuna; gaur fabrikatzen ez diren **amortiguadore** batzuek olatu indargabeen gainean bezala sentiarazten zaituzte. Pako Aristi

Bere autotik bakalao musika dator, **amortiguadoreak** desegiten dituen tzunba-tzunba basatia. Pako Aristi

---

amortitu, amorti(tu), amortitzen du *ad ipar* amortizatu.

Eta gaur egungo tresneria berriaren **amortitzeko**, zer-nolako buruhausteak ez zeuzkan aitak! Daniel Landart

---

amortizagarri *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)* **1** *izond* amortiza daitekeena.

Finantza-merkatuak modu sostengagarri batean soilik haz daitezke sektore errealean sortutako likidezia bereganatuz, sektore hori mailegu **amortizagarrietan** oinarritzen delarik. ETC-prentsa

Elektrizitatearen prezioaren hazkundeari eta teknologia horren merkatzeari esker, gaur egun autokontsumorako ekipamendu fotovoltaikoetan inbertitzea **amortizagarria** da baldintza horietan. ETC-prentsa

Denboran mugatzea lor liteke, ordainketa horiek guztiak urteroko **amortizagarri** bihurtuz edo bestela errenta eta herentziaren gaineko zergen erabilpen egokiaren bidez, zeinek horrela beren azken zerbitzua eman bailezakete betiko desagertu baino lehen. ETC-literatura, saiakera

Finantza-merkatuak modu jasangarri batean soilik haz daitezke sektore errealean sortutako likidezia bereganatuz, sektore hori mailegu **amortizagarrietan** oinarritzen delarik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondorio fiskaletarako, elementu **amortizagarri** baten balio-bizitza izanen da, hartutako amortizazio irizpidearen arabera, haren balio osoa erabat estalirik geldituko den epea, hondar-balioa alde batera utzita, hala badagokio. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***zor amortizagarri*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Batetik dago **zor amortizagarria** deitu duena, mila milioi eurorena. ETC-prentsa

Joan den ekainean onetsi zuen Amurrioko enpresaren batzarrak zorra hiru zatitan banatzea, hura berriz finantzatzeko: lehen zatia **zor amortizagarria** da (90 milioi euro), eta gainontzekoa (168 milioi) zor bihurgarria. ETC-prentsa

---

amortizatu, amortiza(tu), amortizatzen du *ad* zor bat edo inbertsio bat osorik edo partez berreskuratu. ik**amortitu**.

Teknologia handiko industrien babesa zilegi bihurtzen duen argudio garrantzitsu bat da, izan ere, berrikuntzaren kostua aski handia izan daitekeela: kostu hori **amortizatu** ahal izateko, sortzen diren irabazi guztiak enpresa berritzailearen onerako behar dute izan; alegia, bestela esanda, berrikuntzek ez dute zabaldu behar. Koro Navarro

Zenbait adituren ustez, aire konpainiek, euren inbertsio handia **amortizatu** nahian, gehiago joko dute bidaiari ahalik eta gehien sartzera eta hegazkina sardina lata handia bilakatzera. Berria - Harian

Anduren langabeziko azken soldatarekin erositako sarrera ugariko mobila berehala **amortizatu** genuen eta, gure ospea apur bat zabaldu bezain laster, telefonoa kea ateratzen hasi zen. Jon Arretxe

Menpeko finantza ekarpenak ez dira **amortizatuko** jaulkipen egunetik gutxienez bost urte igaro arte. Berria - Ekonomia

TERRAK [...] autokartera gisa zituen 26,5 milioi akzio **amortizatu** ditu, jaulkipen erreserbekin. Berria - Ekonomia

Euskal Y-aren kostua 20 urtetan **amortizatuta** egongo da. Berria - Euskal Herria

Bezeroek zorra 85 urte bete aurretik **amortizatzea** helburu du kutxak. Berria - Ekonomia

Yondelis sendagaiaren ikerketak **amortizatzeko** 9,8 milioi euro erabili zituen. Berria - Ekonomia

Eta agian urte bete aski izango zela **amortizatzeko**, aurreratuko genuenarekin. Xabier Olarra

Filmak ahalik eta azkarren **amortizatzera** behartuta egon dira enpresak, Anatolek dioenez: [...]. Berria - Ekonomia

---

amortizazio **1** *iz* zor bat edo inbertsio bat osorik edo partez berreskuratzea.

165 milioi euro irabazi ditu, zerga eta **amortizazioen** aurretik. Berria - Ekonomia

Gas Naturalek 2009an zerga, interes eta **amortizazioen** aurreko mozkin operatiboak 1.200 milioi eurokoak izatea aurreikusten du. Berria - Ekonomia

Alderantziz, prezioak jaisten badira, ahalmenak beherantz doitzea prozesu geldoa izango da, zeren ekoizpen-kostu osoaren parte handi bat kapitalaren **amortizazioari** eta finantza-gastuei dagokiena izaten baita. Koro Navarro

Gaztelan, non ez baita horrelako araurik, elizgizonek dena inbaditu dute; Aragoin, non bai baita **amortizazio**-zerga zerbait, gutxiago eskuratu dute. Iñaki Iñurrieta

Bistan da konfiskazio hori judutarrengandik jasotzen zituzten zergen nolabaiteko **amortizazio**-eskubide bat zela printzearentzat edo jaunentzat, hauek zergok gabe geratzen baitziren juduek kristautasuna besarkatzen zutenean. Iñaki Iñurrieta

Ez da aski interesa txikiagotzea, txikiagotzearen onurak **amortizazio**-funtsa osatu behar du urtero kapitalaren parte bat ordaintzeko. Iñaki Iñurrieta

Gehienez 15 urteko **amortizazio** epea pabiloietan inbertitzeko eta 7 urtekoa beste aktibo finkoetarako. Berria - Ekonomia

2 ***amortizazio-funts***

Ez da aski interesa txikiagotzea, txikiagotzearen onurak **amortizazio-funtsa** osatu behar du urtero kapitalaren parte bat ordaintzeko; eragiketa hori are zori onekoagoa da, arrakasta egunetik egunera handituz doanez. Iñaki Iñurrieta

---

amosal *iz iz* nitrato amonikoz eta beste zenbait osagai kimikoz osaturiko lehergailua.

ETAk, gure alderdia suntsitzeko, amonala, **amosala** eta tiroak erabili ditu. Berria - Euskal Herria

Atzo Espainiako Barne Ministerioak adierazi zuen astelehenean ETAk leherrarazi zituen bonbak "etxean egindakoak" zirela, eta **amosal** izeneko lehergaiaz osatzen zirela. Berria - Euskal Herria

Era berean, baieztatu zuen iragan larunbatean Almerian (Espainia) aurkitu zuten leherkariak osagai berbera zeukala, **amosala** . Berria - Euskal Herria

---

amosita *iz* amianto mota.

Bi multzo horien artean, egitura eta funtzio ezberdinetako amianto mota ugari dago: antofilita, **amosita** , krozidolita, aktinolita eta tremolita, adibidez; baina munduan zehar gehien hedaturiko amianto mota kristolitoa da. Berria - Ekonomia

---

amotinatu ik **mutinatu**.

---

amoxicilina *iz*

Amoxicilina : Antibiotikoa da, eztarriko minaren eta hainbat infekzioren kontra erabiltzeko. Berria - Euskal Herria

Amoxicilina eta azido clavulanicoa: **Amoxicilinaren** eragina areagotzen du, eta infekzio handietan erabiltzen da. Berria - Euskal Herria

---

amoztar *iz* Senpereko Amotz auzoan jaiotako pertsona.

Remy Pourteau **Amoztarra** eta Karine Larçabal Azkaindarra. Herria

Amoztar ezagunek deitzen zuten Gaxuxa Lartzabalekoa. Herria

Gero zintzur bustitzea Bruno Ollivon **Amoztarrak** alaiturik. Herria

---

amoztartu, amoztar(tu), amoztartzen da *ad* amoztar bihurtu.

Ttikian Ergaraitar gero **Amoztartu** . Herria

---

ampere **1** *iz* korronte elektrikoaren intentsitatearen banakoa.

Aginte-koadro nagusia azaldu nion neskari gutxi gorabehera, xehetasunetan sartu gabe; labur-zurrean, zer den kilowatta, zer hidraulika, zer **amperea** , Sabethek eskolatik zekizkien gauzak guztiak ere edo, hobeto esanda, ahaztuak izan arren berriro nekerik gabe ulertu zituenak. Joxe Austin Arrieta

Parametro ia berdin-berdinak dituzte elektroxokeko makinek -instalazio psikiatriko zenbaitetan erabiltzen direnen antzekoak- eta txerrientzako durduzagailuak: **ampere** bat, hirurehun volt. Xabier Olarra

2 ***ampere bira*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***9*** *agerraldi)*

Nazioarteko Unitate Sistemaren arabera indar magnetoeragilearen unitatea **ampere bira** da. Hau da, haril baten bira batetik igarotzen den korrontea. ETC-entziklopedia

3 ***ampere kopuru*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***4*** *agerraldi)*

R-S-ren balioa, orratzak eskala-fondora heltzeko behar duen hautatutako **ampere kopuruaren** araberakoa izango da. ETC-entziklopedia

4 ***ampere-ordu*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***9*** *agerraldi)*

Ampere-ordu edo amp-ordu (Ah, A·h edo A h sinboloekin ezagutzen dena) karga elektrikoaren unitate bezala definitu dezakegu. ETC-entziklopedia

Kapazitatea: bateria baten ahalmena **ampere-ordutan** (Ah) adierazten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konpara ezazu energia hori baterian bertan metaturiko energiarekin, jakinik bateria bi punturen artean (borneak) potentzial horretan Q=3,6 x 105 C-eko karga osoa askatzeko gai dela (karga hori aska dezake, hain zuzen, 100 ampere-orduko karga izendatua duen bateriak; **ampere-ordua** kargaren unitate estandarra da). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amperemetriko *(corpusean ez dago; ETCn* ***16*** *agerraldi)* **1** *izond* ampereak neurtzekoa.

Koordinazio hori komunikazio-kanalen bidez, doikuntza **amperemetrikoen** bidez, doikuntza kronometrikoen bidez edo aurreko teknikak elkarrekin konbinatuz gauzatu daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***pintza amperemetriko*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi)*

Pintza amperemetriko eramangarria ohiko tresna bat da ekipamendu industrial eta komertzial elektrikoaren mantenimendu lanetan. ETC-entziklopedia

---

amperemetro *(corpusean ez dago; ETCn* ***126*** *agerraldi) iz* ampereak neurtzeko tresna.

Amperemetroa zirkuitu elektriko bateko puntu batetik igarotzen den korronte edo intentsitate elektrikoa neurtzen duen gailu bat da. ETC-entziklopedia

Intentsitate elektrikoa orokorrean I ikurraz ezagutzen da; bere unitatea Nazioarteko Unitate Sisteman anpere amperea (A) da, eta Coulomb / segundotan neurtzen da (1A=1C/1s). Intentsitatea neurtzeko erabiltzen den gailua **amperemetroa** da. ETC-entziklopedia

Intentsitatea jakiteko identifikazio xaflan aurkitzen da, bestela **amperemetro** bat erabiliz. ETC-entziklopedia

Orduak emana da torloju, kable, edergarri, fusible, etengailu, kommutadore, bonbilla, fluoreszente, **amperemetro** , voltametro, voltmetro, kontagailu, eta abarren marrazkiei begira, luzerak, zabalerak, kalibreak eta bestelako ezaugarriak zehazten zituzten marrak, biribilak eta ñabardurak ulertu nahian. ETC-literatura, saiakera

Korronte-moduluak: lineen eta transformadoreen bi muturretan **amperemetroek** neurtutako balioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretarako, hainbat tresna daude: **amperemetroek** korrontea neurtzen dute; voltmetroek tentsioa neurtzen dute; eta ohmmetroek erresistentzia neurtzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kasu honetan, sentsorea korronte-neurgailu bat litzateke, adibidez **amperemetro** bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Polimetroa **amperemetro** funtzioan jarri, eta neurtu korrontearen guztizkoa (horretarako, GNDra doan kablea deskonektatuko dugu 4. zutabetik, eta bi puntu horiek

amperemetroaren bidez neurtuko ditugu). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

amplitude ik **anplitude**.

---

amsterdamdar *izlag/iz* Amsterdamekoa, Amsterdami dagokiona; Amsterdameko biztanlea.

Pertsonaia nagusia, Inni Wintrop **amsterdamdarra** da, Provos mugimendu anarkista ludikoaren aparretan ibilitakoa. Berria - Kultura

Hegazkinekoak jaisten ari ziren bitartean alemaniarrek tiroka jardun zieten; ikusten ari ziren **amsterdamdarrak** ahotik patsa zeriela zeuden, horrelako jarrera koldarrak ematen zien amorruagatik. Josu Zabaleta

Horregatik dira **amsterdamdarrak** barneratiak, barnerakoiz gainera, benetako etxea barrukoa dela susmatuko balute bezala. Felipe Juaristi

Txalupatik murgil eginda igerian ikusirik **amsterdamdarrak** urrikaldu eginen zirela pentsatu zuen, horrela ito zen, horrela hil zuen urketaria Catharina Nauwelaerts-ek. Koldo Izagirre

---

amu **1** *iz* metalezko atal txikia, gako edo aingura itxurakoa, beitaz horniturik arrantzuan erabiltzen dena.

Arrantzarako pita, **amu**, kanabera luzagarri eta bestelakoak autoaren atzealdean sartu eta irratia piztu dut. Harkaitz Cano

Amua amu zela konturatu izan ez balitz, nirea izango zen une hartantxe. Harkaitz Cano

Amu bat dauka hatz muturrean sartuta. Itziar Otegi

Hatz lehorrari begira geratu zen, tarte luzez, hatz erakuslean **amu** bat sartu zaion arrantzalearen bisajearekin, minduta baino gehiago, lotsatuta. Harkaitz Cano

Aitak arrantza-hari bat prestatu zuen: adar bat hartu, haria lotu, **amu** gisa orratz okertu bat erantsi, eta ogi zati bat ipini zion beita gisa. Juan Kruz Igerabide

Zokorik arriskutsuenetan jarduten zuen lanpernatan, atunetako **amu** bat ibili zuen hilabetean belarritako, guk arraunketa naturalean baino arinago eramaten zuen batela ziaka. Koldo Izagirre

Amu gisa atunaren biltzeko, antxo umeak biltzen ari ziren, hegitik 6 miletan. Herria

Amu gisakoak ziren, eta aski izango zuen Nofuturek bakarrari hozka egitea oroitzapenaren haritik tiraka hasteko. Jon Muñoz

Eladiok, ezusteak ahotsari ematen dion baina kasu honetan **amu** irentsiarena dirudien marrantaz: [...]. Pako Aristi

Ehiza-lagunak albait hoberen armatuta zetozen, artzain eta arrantzale baketsuak zirela kontuan hartuta: batzuek akuilu luzeak zeramatzaten muturrean labanak lotuta; beste batzuek berriz, arrantzarako arpoi txikiak, edota **amu** lodiak kizki moduan. Joanes Urkixo

Atereak neuzkan perka abata zaharrak, eta **amu** hirukoitzak haztatzen ari nintzen. Koro Navarro

2 irud/hed

Amarru bat prestatzea ere bururatu zitzaidan, **amu** bat ipintzea, zerbait argi eta garbi jakiteko. Juan Kruz Igerabide

Beste **amu** bat eta beste beita bat eskaini behar nizkion baleari. Joan Mari Irigoien

Izan ziren **amu** horri ederki kosk egin ziotenak (Ben Johnson, Lindford Christie eta Donovan Bailey Jamaikan jaiotakoak dira, baina Kanada eta Erresuma Batuarekin aritu ziren). Berria - Kirola

Oferta ekonomikoaren kulturaren gailur horiek urte osoan erosketaren amua etengabe dakarkigun itsaso batean dabiltza igeri, eta gu gara **amu** horiek irensten dituzten arrainak: behar ez ditugun gauzak erosiz, nahi ez ditugun gauzak eginez dirua aurrezten dugula sinesten dugu, baina gure askatasuna oso merke saltzea besterik ez dugu lortzen. Buñuelen pasarte hori, zineaz, antzerkiaz, teleaz eta orohar munduko "ikuskizun trastzendenteez" oraindik inork egin gabeko tesi eder baterako **amu** izan liteke. Pako Aristi

Ziur nengoen haren galdera **amu** bat zela. Juan Kruz Igerabide

Beste **amu** batek erakarri zuen Selifan. Jose Morales

EPLPren asmoa trinketean eta joko berrian aritzea da, eta **amu** erakargarria dute: Agusti Waltari. Berria - Kirola

- **Amu** gozoa, saihestezina agian, nahita jarrita zure lagunak irentsi zezan. Migel Angel Mintegi

3 (hitz elkartuetan)

Gaiztoa da gero, **amu**-pieza txiki hori! Itziar Otegi

Alferrenak, berriz, txuletak egiten edo fotokopialekuan utzi dudan **amu**-azterketa buruz ikasten. Jon Arretxe

4 ***amua irentsi*** engainatua gertatu.

Denok **irentsi** genuen amua. Iñigo Aranbarri

Ez zidan amua **irentsi**. Edorta Jimenez

Ostolazak, nola ez!, itsu-itsuan **irentsi** zuen amua, Gabriellek ezin hobeto bete baitzuen lana. Migel Angel Mintegi

Berun eta guzti **irentsi** dinagu amua. Harkaitz Cano

Berehala **irentsi** zuen amua katxaloteak: "gustatzen zaizkizu?" eta erosi egin zizkion. Jon Arretxe

Sauronek **irentsi** egin zuen amua, eta altzairuzko barailekin gainera. Agustin Otsoa

· Amu gozoa, saihestezina agian, nahita jarrita zure lagunak **irentsi** zezan. Migel Angel Mintegi

Aprobatu egin zuen adar jotzailea, haren amua ez ezik, amua **irentsi** izanaren amorrua ere irentsita. Joxerra Garzia

5 ***amuari kosk egin****sup_1*

Arrainak **amuari kosk egina** zion, eta orain haria luzatu behar zen, urruntzen utzi, amua erabat irentsi zezan. Juan Kruz Igerabide

4 *amuari kosk egin*[2] engainatu. Harryk bazekien ez ziola Dudleyren **amuari kosk egin** behar. Iñaki Mendiguren

Irakurle askok **amuari kosk egin** zioten; beste askok ez. Txema Ramirez de la Piscina

Hain itsuturik gelditu zen halako mauka bere muturren aitzinean ikusita, non **amuari kosk** besterik ezin izan baitzuen **egin**. Alberto Ladron Arana

6 ***amuari lotu*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Osabak lehen aldiz eraman gintuelarik peko errekara xipaka, buxoina urera sartu zitzaidan eta karramarroa zen **amuari lotua**. ETC-literatura, saiakera

Zunda-baloia askatu du CGDk, erosia izan nahi duen finantza erakunderen bat-edo **amuari lotzeko**". ETC-prentsa

Azpimarratu nahi dugu, dena den, itzultzaileek erdararen amua (kalkoa) aurrez aurre izaten dutela lanean ari direnean, eta arrisku handiagoa dutela, beraz, **amuari lotzeko**. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amu gisa** (8); **amu horri** (3); **beste amu bat** (3)
> **amua bota** (3); **amua irentsi** (11); **zuen amua** (6)
> **amuari kosk** (4)

---

amuarrain *(orobat **amoarrain** g.er. eta **amurrain** g.er.)* **1** *iz* ur gezetako arraina, azala nabarra duena, oso aintzat hartua sukaldaritzan *(Salmo fario)*.

Begira, begira, zer harrapatu duen Ardotxik -esaten zion amak umeari, herritik hurbil zegoen errekan kordelarekin eskuratu berria nuen **amuarraina** erakusten ziola. Rafa Egiguren

Baztango izokina eta **amuarraina** jatera, alegia. Hasier Etxeberria

Han beti neukan zeregina: lagundu egiten nuen zaldi pabiloiaren mantentze-lanetan, basora joaten nintzen Lubisekin, edo errekan **amuarrainak** harrapatzera Pantxorekin, edo Adela artzain andrearen etxera bi anaiekin eta Ubanberekin. Bernardo Atxaga

Liluraturik geratu zen ikustean nolatan erreka bateko **amuarrainak** ur lasterretan gora zihoazen, bizi-bizi, uraren kontrako lehia gorrian. Josetxo Azkona

-Txikienak ezkailuak ditun, pinttoak **amuarrainak**, eta sugeantzeko horiek aingirak. Pako Aristi

Escaldako **amuarrainak** borgoniar erara prestatuak. Felipe Juaristi

Udako egunetan igeri egitera joaten ginen errekaren presa txikira, eta igeri egin eta gero **amuarrainetara** edota txori habiak bilatzera. Bernardo Atxaga

Arrantza debekatua zegoen urte-sasoiko egun batez, nire aita **amuarrainetara** joan zen bere koadrilakoekin. Anjel Lertxundi

Martxel naiz, hamalau urte ditut, halakoren semea naiz eta herri inguruan azeriak harrapatzea gustatzen zait, edo **amuarrainei** tranpak jartzea. -**Amuarrain** txiki asko badira, **amuarrain** handi batek adina izango dute; berdin baitzait hogei erreal banan-banaka edo ogerleko batean. Alberto Barandiaren

Ur gozoko ibai batzuetara udazken beranduan etortzen ziren **amuarrain** erraldoiak. Koro Navarro

Arrantzan ibiliak ginen errekan, **amuarrain** marroiak harrapatzen. Ilargi beteko gauak, Koronelaren ibaian itsas **amuarrainak** arrantzatzen. Mirentxu Larrañaga

Charlieren burutazioa izan zen isileko ehizan edo arrantzan ibiltzekoa: izokin, itsas **amuarrain**, untxi, eta oreinik ere harrapatuko omen genuen. Mirentxu Larrañaga

Jeneralak kupeldegian edo basoan ematen zituen goizak, edo bestela **amuarrain**-errekara hurbiltzen zen egunero, are neguko goiz euritsu eta hotzetan. Xabier Olarra

2 *amuarrain arrunt*

Ortzadar amuarraina zegoen gehienbat, **amuarrain arruntak** eta Dolly Varden motako batzuk mendi handietako erreka batzuetan, eta zilar-koloreak Blue Lake eta Rimrock Lake aintziretan. Koro Navarro

3 *amuarrain artiko* *(corpusean ez dago; ETCn **140** agerraldi)*

Amuarrain artikoa ("Salvelinus alpinus") Salmonidae familiako arraina da, Artikoan, azpiartikoan eta antzeko eremuetan bizi dena. ETC-entziklopedia

Staubik berak errekasto ziztrina zirudien, eta amuarrainak, ibai-izokinak eta **amuarrain artikoak** dozenaka hiltzen ziren. ETC-literatura, saiakera

Larrutan bildu eta izoztutako hiru **amuarrain artiko** (Salvelinus alpinus) hurrenez hurren jarri, azpia karibu baten urdaileko edukiaz koipeztatu eta izotz-geruza fin batez estalita, leraren patin bihurtzen ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aintzira oso ezaguna da arrantza munduan; izan ere, bertan, amuarrain marroi eta **amuarrain artiko** handienak arrantzatzera uda partean etorri ohi diren arrantzaleen kopurua handia da. ETC-entziklopedia

Ylijokiko ur garbietan, **amuarrain artikoak**, amuarrain marroiak eta izokinak arrantzatu daitezke. ETC-entziklopedia

4 *amuarrain ostadar* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Amuarrain ostadarra edo ortzadar-amuarraina ("Oncorhynchus mykiss"), Salmonidae familiako arrain eurihalinoa. ETC-entziklopedia

Horiek, gero, izokin eme helduei txertatu zizkieten, eta haiengandik Oncorhynchus mykiss espezieko amuarrainak -**amuarrain ostadar** deitutakoak- jaio ziren. ETC-prentsa

Amuarrain arrunta, **amuarrain ostadarra**, barboa, loina edo loina txikia, lupina, lazuna edo korrokoia, platuxa eta karpa harrapa daitezke sasoi honetan. ETC-prentsa

5 *amuarraina harrapatu*

"Pantxo! Ez al duk **amuarraina harrapatu** behar! -egin zuen buila Ubanbek. Bernardo Atxaga

Sebastianek begia keinatu zidan: "**Amuarraina harrapatzen** hasi duk luze iritzita zegoelako, eta ahaztu egin zaiok eskumuturrean erlojua zeramala. Bernardo Atxaga

6 *amuarrainak harrapatzen*

"Zertan ari zen? **Amuarrainak harrapatzen**?" "Uste dut baietz." "Uretan sartuta ibiltzea gustatzen zaio Pantxori. Bernardo Atxaga

7 *ibai amuarrain* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Kolore askotakoak dira, eta hainbat espezie daude: amuarrain arrunta, ortzadar-amuarrain ortzadar amuarraina, **ibai amuarraina**, aintzira amuarraina, itsas amuarraina, amuarrain artikoa, izokin amuarraina... Ur garbiak, hotzak eta ondo oxigenatuak behar dituzte. ETC-entziklopedia

Ibai-amuarrainak (morfo "fario") bizkar iluna, arre (kolorea) marroi, gris edo berdekara, tanta beltz edota gorriz apaindua, eta azpialde zurixka izaten du. Itsasoan egon diren amuarrainak (morfo "trutta") zilar-kolorekoak dira. ETC-entziklopedia

8 *itsas amuarrain*

Charlieren burutazioa izan zen isileko ehizan edo arrantzan ibiltzekoa: izokin, **itsas amuarrain**, untxi, eta oreinik ere harrapatuko omen genuen, zoria aldeko izatera, Charliek zioenez. Mirentxu Larrañaga

Erdibana edan dugu katilukada te gozo-gozoa, eta kontu-kontari aritu gara, Charliek nahi duen guztia baliatuz mintzagai: gure etxea; ogia eta gurin-budina, mahaspasaduna, eta gainean ogi-koskor kurruskatsuak eta guzti zituena; ilargi beteko gauak, Koronelaren ibaian **itsas amuarrainak** arrantzatzen... Mirentxu Larrañaga

9 *ortzadar amuarrain*

Ortzadar amuarraina zegoen gehienbat, amuarrain arruntak eta Dolly Varden motako batzuk mendi handietako erreka batzuetan, eta zilar-koloreak Blue Lake eta Rimrock Lake aintziretan. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amuarrain bat** (4); **amuarrain baten** (3); **amuarrain hauek** (3)
> **amuarrainak harrapatzen** (3)

---

amuarraintsu *izond* ibaiez eta kidekoez mintzatuz amuarrain asko dagoena.

Toki **amuarraintsua** zen, harriarte eta ur-laster askokoa. Anjel Lertxundi

---

amugile *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* amuak egiten dituena.

"Oriko xoria", "Galai bat etorri zait", "Hiru damatxo", "Berdabioko semea", "**Amugileen** kantak", "Esaten dute bada", "Triste bizi naiz eta", "Ardoaren bentajak", "Edderra zira, maitea", "Axuri beltxa" eta beste kanta ezagun asko entzun daitezke bertan. ETC-prentsa

---

amuina ik **amoina**.

---

amuko[1] *iz* liho izpirik bikainena.

Hiru gazteak labera bota zituzten errege-zerbitzariak sua indartu eta indartu ari ziren, petrolioa, bikea, **amukoa** eta egurra emanez. Elizen arteko biblia

Baita badago iturri hotz bat, bere gainean **amukoa** ipiniz gero, isiotzen eta garra egiten duena; zuzia ere bere uhinetan horrelaxe sutzen eta argitzen da, haizeek auretan flotarazten dutenean. Xabier Amuriza

---

amuko[2] *izond* arrainez mintzatuz, amuz harrapatua.

Txalupatiko arrantza **amukoa**, baserriko arrautza benetakoak, zortzi urtez larrean hazitako idia, azalore eta piper usaintsu bildu berriak... luxuzko: izen handiko jatetxeetan baino ez dira kontsumituko horrelakoak, ez dira dendara iritsiko. Edorta Agirre

Herriko nekazariak, erlezain autonomoak, gozogile artisauak, onddo-biltzaileak, txalupako arrantzaleak... traîteur eskulangilearen ospea hartuko dute, diseinuzko elikagai bikainak ekarriko dizkigute-eta: pasteurizatu gabeko gingko-ezti purua, ilar eta azalore lurrintsuak, ahuntz-gazta kategoriakoa, **amuko** lupi harrapatu berria. Edorta Agirre

---

amula ik **amura**.

---

amulatu ik **amuratu**.

---

amuleto *iz* kutuna, lepoan zintzilik eramaten den gauzakia, naturaz gaindiko ahalmenak omen dituena.

Irakasleengandik ezkutuan, talisman, **amuleto** eta beste babesgailu batzuen merkatu izugarria zabaldu zen berehala ikastetxean. Iñaki Mendiguren

Mahaian neuzkan gauzei begiratzeari ekin nion, entretenitzearren, noski, eta nire paperak ikusi nituen, nire luma eta boligrafoak, hiztegiak, kafearen kikara hustua, nire **amuletoak**, Gopegin jasotako itsas triku baten fosila, letra handitan erne! jartzen zuen fitxa bat. Bernardo Atxaga

Afrikaldean **amuleto** asko propio lizar zurez egiten dira, ahalmen bereziak dituen arbola sakratua delakotz, batez ere gizonen bihotza pil-pilka paratzeko **amuletoak**. Patziku Perurena

---

amultsu *(orobat **amoltsu** g.er.)* **1** *izond* gainerakoekin onginahiez eta maitasunez jokatzen dena. ik **otzan**.

Esterrek, Korfu-n veneziar familia batean jaiotako andre **amultsu** eta asaldagaitz hark. Juan Garzia

Oi maiatzeko arrosa, dontzeilatxo laztan, arreba **amultsu**, Ofelia eztia! Juan Garzia

Mutilak irribarre **amultsu** batez eskertu zuen katuaren etorrera. Anjel Lertxundi

Edozer gai ukitzea aski zen aiherkundea piztu zedin; haien artean ez zen hitz **amultsu** bat bera ere trukatzen. Josu Zabaleta

Asad eta Amgad gazteek, ostera, ezin bada igarri emakumeen musu eta besarkada **amultsu** haien atzealdean ezkutatzen zen irrikari eta desioari. Patxi Zubizarreta

Emazteari begirada **amultsu** bat eskaini zion. Elena Touyarou

Bere baitan bildu behar du, arima-zolara itzuli, bihotza jaso, bere goi-ahalmenak aurkitu, Jainkoaren presentzia barruan kontenplatu, borondate **amultsu** eta jainkozkoa denen gainetik egin dadila nahi izan. seri eta gutun **amultsu** bat idatzi nuen: [...]. Joan Mari Lekuona

Denbora eman zuen bizirik ala hilik aterako zen bere buruari galdezka, argi zirrinta arrosa eta **amultsu** bat jazartzen miretsi zueneraino: erabaki zuen bizirik jalgitzea. Itxaro Borda

2 (adizlaun gisa)

Halako kasuetarako zeukan errekurtso bakarra erabili zuen Mikelek, **amultsu** igurtzi zizkion sorbalda eta lepo buelta. Unai Iturriaga

Presarik ez daukaten gazteak besarkatu egiten dira luze eta **amultsu**, oinetara erortzen zaien mezu larriarentzat eskurik gabe. Koldo Izagirre

Emakumeek batzuetan **amultsu** eta maitekor agertzeko duten gaitasun ukaezina erabiliz. Joxean Agirre

3 (hitz elkartuetan)

Apika alkimiazaleen bikotekatze klasikoen omenaldi **amultsu**-ironiko bat zen hori. Juan Garzia

Besarkatu egin nuen **amultsu-amultsu** eta osabak ematen zizkidan bezalako musu bat ematen saiatu nintzen. Aitor Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amultsu bat** (9); **amultsu batez** (3); **besarkada amultsu** (3); **irribarre amultsu** (3)
> **amultsua da** (3)

---

amultsuki *izlag* era amultsuan.

Maddik orduan, presaka, atorra irekiz bularrak askatzen zituen eta niniaren ahoa esnez hantu titi ubeletan pausatzen zuen **amultsuki**. Itxaro Borda

Musu eman eta **amultsuki** etzan nuen bere lekuan. Hasier Etxeberria

"Zatoz nirekin" esan eta **amultsuki** heldu omen zion beso batetik, edo zintzilikatu omen zitzaion, eta hurbiltasunak batzuetan ematen duen kidetasunari esker bakean eta isilik egin omen zituzten pauso batzuk kalean barrena, gizonaren sorbaldaren kontra burua ezarri eta begiak itxita, gizonezkoak ematen zion bake horretan atseden hartuz, erasotzaileak gainera oldartu zitzaizkienean. Joxean Agirre

Fernando Valdes Sevillako Jaun Artzapezpikuak (Jainkoak bere lorian duela!) **amultsuki** hartu ninduela eta ahalak oro egin zituela, bera buru zen Inkisizioko Kontseilu Nagusian sar nendin, garbiki erranez, herriarentzat on izanen zela niri zoakidan zerbait posturen eskaintzea, Erregeren gortean ene geldiarazteko. Piarres Xarriton

Anaiak irri-karkaila luze bat bota zuen, **amultsuki** erraten zidala: "Izutu haiz, he, Paxkal...!". Daniel Landart

Amultsuki entzuten gaituen belarri eta ahots lasaiak lanaren, amodioaren nahiz exilioaren izkinak leuntzen ditu. Itxaro Borda

Lagunetan hitzik erran gabe baziren **amultsuki** so egiten ziotenak. Michel Oronoz

Nikolaik **amultsuki** begiratzen zion, irribarre xumea eginez eta negarrez-. Jose Morales

Durant jaunak **amultsuki** irribarre egin zuen haien zalaparta artean, kapela eta berokia tentu handiz esekitzen zituelarik. Mirentxu Larrañaga

Mémée deitzen zioten guztiek amonari **amultsuki**, oso musugorria zen, bizia, nerbio handikoa. Joxan Elosegi

Lurrean **amultsuki** laga zuen kamera, matxuratuko ote zuen beldurrez. Josu Landa

Haize epelaren ondorioz-edo, Gérard irria ezpainetan atera da, Sophie-ren gerria besoarekin **amultsuki** inguraturik. Eneko Bidegain

Bide hegiko sasiaren maldaren aterpean nolabaiteko sendagela naturalean **amultsuki** eta emeki pausatu orduko, gorputzeko luma guztiak harrotuz eskertu ninduen, bekan hala izan nintzen eran. Itxaro Borda

Zakuan sartu aurretik, katutxoek bizkarra igurzten zuten Joxe Mariren hanken kontra, **amultsuki**, erabat fidakor, eta ez zioten ihes egiten zakuratzerakoan ere. Juan Kruz Igerabide

Horrek erakusten du, otoitza irakurtu-eta, zein nobleki, zein **amultsuki** galdegin duten barkamendua anaitasunean eta bakean bizitzeko, anaitasunaren eta bakearen bilatzeko. Herria

-Eta zertaz mintzo zineten nik kalakaldia haustean? -galdegin zuen Joanttok, abantzu **amultsuki**. Elena Touyarou

Berehala haren bila doaz eta hatzematen dutelarik besarkatzen dute denek, zinez **amultsuki**. Herria

· Dena den, amak usaian baino **amultsukiago** besarkatu zuela, hori ezarri zuen Josepek burutan. Janbattitt Dirassar

-Bai, gizonak -jarraiki zuen ahalik **amultsukien** Frantxuak-. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amultsuki begiratu** (3); **amultsuki begiratzen** (3); **zuen amultsuki** (3)

amultsutasun *iz* amultsua denaren nolakotasuna.

Mespretxuzkorik ez hartan, **amultsutasun** zakar bat baizik. Aingeru Epaltza

Baina, beste alde batetik, penatzen hasi zen agure hura gogoratzean, jan nahiko balu bezala begiratzen ziona, begiak bete **amultsutasun**. Bego Montorio

Adineko emakume batek laket izan zitzakeen dohainen artean -prestutasuna, **amultsutasuna**, begirunea-, denetaz biluzik zen gure Ximurra. Aingeru Epaltza

Barazkijale-dieta zorrotz-zorrotza egiten zuen eta kaleargi itzali baten **amultsutasun** eta nortasun berberak zeuzkan. Oskar Arana

Buru gaineko kalpar latzak gogotik ferekatu nizkion, **amultsutasuna** mozorrozteko xedea zuen zakartasun gehiegizkoaz. Aingeru Epaltza

Amultsutasun une horietan oroitzen zen Villejuif hirian utzi zituela andrea eta alaba, bere soldadukide hoberena emazteaz amorostu ondoan. Itxaro Borda

Maisuaren aurpegia **amultsutasunetik** zorroztasunera igarotzen ikusi nuen. Irene Aldasoro

Baina, nirekiko atsegin ageri badira ere, ez dut behar ez haien **amultsutasunik** ez haien laguntzarik. Mirentxu Larrañaga

Jakin beza munduak zu zarela gure tronutik hurbilenekoa, eta aitarik kutunenak bere semeaganako duen baino bihotz-**amultsutasun** ez eskasagoa dudala nik zuganako. Juan Garzia

---

amultsutu, amultsutzen da *ad* amultsu bihurtu.

Konfiantzan, ezaupidean eta adiskidantzan pertsonen arteko tratua erraztu egiten da, samurtu, eta errazean/samurrean zer gertatzen da?; erraz/samur direla pertsonak elkarrengana biguntzen, gozatzen eta **amultsutzen**, eta erraz/samur direla erretzen eta haserretzen ere. Iñaki Segurola

---

amuña ik **amona**.

---

amura *(orobat **amula**) iz* branka osatzeko ontzien aldamenak estutzen diren zatia.

Karrakaren ababorreko **amulako** azken txikotari korapiloa neuk egin nion, eta oinen azpiak lehorrean nituelako, bestela zin egingo nukeen ontzian segitzen nuela. Edorta Jimenez

Labana hortzetan hartuta igo nintzen kubertara ainguraren katean goiti, estiborreko **amuratik**. Koldo Izagirre

Eta nola deskribatu bertze mementu hura, untziak amarrak laxatu zituenekoa, edo masailetan lehen itsas haize hura sentitu nuenekoa, istriborreko **amulan** nintzela...? Joan Mari Irigoien

Eguzkia mendebaldean ostentzen hasten zeneko ontziei ababorreko **amulatik** sartzen zitzaien argiaz miresteko astia ukan nuen. Edorta Jimenez

---

amuraka *adlag* amuraz nagibatu.

Kanoak laprast egin zuen **amuraka** harkaitzetara, ez luze, pilotuak brankaz portura zuzentzea lortu zuen barrak itsasoari ematen zion sosegua berriro baliatuz. Koldo Izagirre

---

amuratu, amura(tu), amuratzen *(corpusean **amulatu** soilik)* du *ad*

Enbarkazioak astiro jarraituko du pal pal, baina **amulatuz**, geroago eta gehiago diren izotz tontorrak saihestu beharrez. Joseba Sarrionandia

Brankaz ezin eta sarritan **amulatu** beharko duzue. Joseba Sarrionandia

Eta aurrera egingo duzue, geroago eta istriborrerantz **amulatuago** eta makurtuago. Joseba Sarrionandia

---

amurrain ik **amuarrain**.

---

amurriar *izond/iz* Amurriokoa, Amurriori dagokiona; Amurrioko biztanlea.

Madrilen jaio bazen ere, bere burua **amurriartzat** izan zuen beti Jesus Galindezek. Berria - Kultura

Beste bost, beraz, Mikel, Lauaxeta eta hiruroz gain: Jakobe **amurriarra**, Arrate eta Oihane etxebarriarrak, Arantxa urruñarra eta Jean Louis heletarra. Juan Luis Zabala

117 puntu eskuratu zituen Rikardo Gonzalez de Duranak, eta ondoren honako bertsolari hauek sailkatu ziren: Orlando Arreitaunaindia bastidarra (109 puntu), Iñaki Viñaspre abetxukukoa (107,5), Amaia Altube **amurriarra** (102), Lander Meaza laudioarra (101), Izar Mendiguren laudioarra (93 puntu) eta, azkenik, Hodei Lopez de Arkaute gopegiarra (87 puntu). Berria - Kultura

---

amusia *(corpusean ez dago; ETCn **119** agerraldi) iz* elementu musikalak ez ezagutzea eta ezin erreproduzitzea sorrarazten duen nahasmendua.

Gortasun apur bat zuen barne-belarrian, gortasun arrunta, baina, gainera, eta horren gainetik, arazo bitxia zuen tonu-mota jakin bat hautemateko eta bereizteko, neurologoek **amusia** esaten diogun tonu-mota, hain zuzen, garuneko entzumen-lobuluen (edo lobulu tenporalen) funtzio kaltetuekin erlazioa duena. ETC-literatura, saiakera

Hirurek dute oinarri biologikoa garunean; patologia kognitiboek afasia ekar dezakete, hau da, hizkuntza-gaitasunak galtzea, edota **amusia**, hots, musika-gaitasunak galtzea. ETC-literatura, saiakera

Musika doinuak sortzeko gaitasunik eza da **amusia** hitzaren esanahia, eta, gogoetarako bide gisa, hitz hori aukeratu du Mikel Andueza saxofoi jotzaileak bere bigarren diskoari izena emateko. ETC-prentsa

Amusia duten gaixoek, ordea, zailtasunak izaten dituzte musika doinuak prozesatzeko -musikarekin loturiko nahasmendu bat da **amusia**-. ETC-prentsa

Amusia: musikaren eta kantuaren gaitasun falta. ETC-entziklopedia

---

amustu ik **kamustu**.

---

amuts ik **kamuts**.

---

amutu *izond* amu formakoa.

Eta ardoa iragazkitik zein bizkor ezkutatzen den ikusten dugu; olio nagia, berriz, zalantzan dago, dudarik gabe edo osagai handiagoak, edo elkarren artean **amutuagoak** eta

tolestuagoak dauzkalako, eta horrela gertatzen da ezen lehenkiek ezindutela elkarrengandik hain arin banatu eta bakoitza bere porotik iragazi. Xabier Amuriza

---

amuzki *iz* beita, karnata.

Baina egiazkoa balitz bezala ziharduten, amu eta **amuzki** egokienak aukeratuz, itsasoa miatuz, ur azpikoa ikusi nahian. Migel Angel Mintegi

Nahitaez, gainera, niri ere **amuzki** erakargarria jarri didazue eta. Migel Angel Mintegi

Esku hutsik zihoan, ordea, gainean ez zeraman kanaberarik, ezta **amuzkirik** ere, urdail hutsean zerbaiten eske zebilkion har temoso hura besterik ez. Migel Angel Mintegi

· *irud/hed* Halako batean, **amuzkia** kazetariak: "Izan gaitezke solidario eta lagundu gure diruaren errentagarritasunari uko egin gabe?". Iñigo Aranbarri

---

aña *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* inudea.

Yolande de Polastron, Polignaceko dukesa zena, Frantziako infanteen **aña** izendatu zuten eta Marie Antoinette erreginak, Agathe de Rambaud aukeratu zuen Normandiako dukea zaitzeko. ETC-entziklopedia

1909an, zorigaitz berri bat gertatu zitzaion: bere 23 urteko **añak**, Doria Manfredik, bere buruaz beste egin zuen. ETC-entziklopedia

Euskara Urkizuko (Tolosako auzoa) **añak** irakatsi zion. ETC-prentsa

Doña Rosita-k Granadako neskazahar baten drama pertsonala azaltzen du nagusiki, baina egileak garaiko gizartearen disekzioa egiten du aldi berean, maldan behera doan goi burgesiatik hasi eta behe-behetik datorkigun jakiturian amaitzeko, Alicia Hermidak ederki gorpuzten duen Rositaren **aña** eternoaren kasuan. ETC-prentsa

---

anabaptismo *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi) iz* Alemanian sortutako doktrina protestantea.

Anabaptismoa Alemaniako doktrina protestantea da, Thomas Müntzerren inguruan, 1521 aldera osatu zena. ETC-entziklopedia

XVI. eta XVII. mendeetan, gizarte-protesta oro Nekazarien Gerraren eta **anabaptismoaren** ikuspegitik interpretatu eta zapaldu zuten Europako gobernuek. ETC-literatura, saiakera

Anabaptismoa 1960 eta 70eko hamarkadetako mugimendu ezkertiarren pareko azaltzen da. ETC-prentsa

Amish edo amishsak (Pennsylvaniako alemanieraz "Amisch", alemanieraz "Amische") **anabaptismo** doktrinako kristau talde bat da. ETC-entziklopedia

Hala ere, XVI. mendean asko erreformara, batez ere **anabaptismora**, pasa ziren. ETC-entziklopedia

---

anabaptista *iz* aurren bataioaren eraginkortasuna onartzen ez duen sekta protestante bateko kidea.

Anabaptista bat, inolako elizarik ez erregerik nahi ez zuena. Aingeru Epaltza

Jabeek, baserritar peto eta kristau zintzoek, protestanteen artean beren buruak Bibliatik gertuen zituztenek **anabaptistak** hala fedez nola ekitez- gorde zuten Rosa de Winter, Alma zenik jakiteke, artoa lehortzeko erabiltzen zen ganbaran. Felipe Juaristi

Ganteko Katedralean matxino **anabaptista** fanatikoak izan dira, beiratilak apurtzeko lan ilustratuaren autore barbaroak. Joxe Azurmendi

Ganteko Katedralean matxino **anabaptista** fanatikoak izan dira, beiratilak apurtzeko lan ilustratuaren autore barbaroak. Joxe Azurmendi

---

anabasa *(orobat **anabas** g.er.)* **1** *iz* nahaste-borrastea, gauza desberdinen edo hondakinen nahasketa.

Euskalki bateko eta besteko ezaugarriak, inolako neurri eta orekarik gabe nahasteak, **anabasa** besterik ez zekarren. Koldo Zuazo

Hamaika federazio, hamaika Liga, hamaika talde... **anabasa** zen nagusi. Berria - Kirola

Hau desastre hutsa da, **anabasa**; ez du ez bururik ez hankarik. Berria - Kirola

Gure familia bereix eta barreiatuan nahasmendua eta **anabasa** nagusi izan dira beti. Jose Angel Irigaray

Anabasa haren erdian, inor ez zen ohartu atzetik zetorren autoaz. Harkaitz Cano

Kapitainen beldurra zen mairuek ez ote zuten igarriko kristauen kanpamentuetan zegoen iskanbila hura guztia, ez ote zuten kristauen arteko **anabasa** aprobetxatuko bat-bateko irteerak egin bost ateetatik Umberto zerbaiten bila hasi zen liburuen **anabasa** hartan. Jon Alonso

Kaio-saldo goseti baten kurrixkak: alakoxea zen hotsen **anabasa** hura, tai gabe errepikatzen den olatu-korda etengabearen apar gainean. Anjel Lertxundi

Etxean ez-ongi egotearen, zalaparta eta **anabasa** izatearen sentsazio lausoa besterik ez zuen lortzen. Fernando Rey

Euskalki bateko eta besteko ezaugarriak, inolako neurri eta orekarik gabe nahasteak, **anabasa** besterik ez zekarren, eta artifizialtasuna izan zen, hain zuzen, Koldo Mitxelenak (1962) eta Luis Villasantek (1963) ikusi zioten akatsa. Koldo Zuazo

Sinetsirik baitzegoen, gurasoek irakatsiaren arabera, ezen haiek gabe ordena gal zitekeela eta **anabasa** sort, eta **anabasatik** basakeria eta bidegabekeria baizik ez zitezkeela iguriki. Joan Mari Irigoien

Erdi lo erdi esna egon zen buruko **anabasa** antolatu nahi eta ezin. Migel Angel Mintegi

Atzoko eguraldi txarrak **anabasa** eragin zuen hainbat kirol ekitalditan. Berria - Kirola

Anabasa, nahasteborrastea, txolopotea, itzela. Edorta Jimenez

Neskaren begiak nire lepoan susmaturik, ontziko **anabasan** barna aurrera eginez txopako gaztelura iritsi ginen. Edorta Jimenez

Baina ezin bere baitan **anabasan** zeuden sentimenduak argitu. Patxi Zubizarreta

Zur eta lur daude korridore ilunean pilatutako **anabasari** eta trepetei begira. Harkaitz Cano

Bere oheko **anabasaz** ohartu nintzela pentsatu zuen, itxuraz, gortinak itxi baitzituen, keinu dorpe batez. Edorta Jimenez

Hankaz gora eta **anabasean** zeuden mahai-aulki kraskagile batzuen gainean, Stan balantzaka ari zen. Lopez de Arana

Hala ere, programaren ardatz nagusiak buruan edo paperean **"anabasean** " dauzkala esan zuen. Berria - Euskal Herria

Agustin Gotzain afrikanoa, lagun nazak nire desordena eta **anabasean**! Pello Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Haren agerpenak **anabasa** handia sortu zuen kalezuloan eta ingurumarietan. Patxi Zubizarreta

Bere buru gainean argindar kable nahasiak **anabasa** geldi batean. Harkaitz Cano

Bere pintzel urduria baterat eta bertzerat mugitzen zuela, baina ez nahas-mahasean eta **anabasa** hutsean. Joan Mari Irigoien

Gizon eta emakume hilak **anabasa** itzelean agertzen direla, harriak, adreiluak, altzariak, panpinak, jostailuak, garbigailuak, hozkailuak eta enparauekin nahastuta. Mikel Hernandez Abaitua

Hori lortzeko, maila ona eman beharko dugu, eta, bereziki, iaz bezala, zortea izan, Tamesis inguruan sortzen den **anabasa** itzela izan baita: istripuak, talka txikiak, maniobra okerrak... Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Bizkor zuzendu zuen idazmahaiko paper- **anabasa**. Migel Angel Mintegi

Orain ere Phil bakarrik dago bere **anabasa** eremu partikularrean, gitarrarekin entseatzen. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

anabasa bat (8); **anabasa batean** (6); **anabasa da** (5); **anabasa handia** (3); **anabasa haren erdian** (4); **anabasa hartan** (7); **anabasa itzela** (3); **anabasa izaten** (3); **anabasa zen** (3); **arteko anabasa** (3); **den anabasa** (4); **halako anabasa** (3); **hura anabasa** (3); **lerro anabasa** (3); **zen anabasa** (3)

anabasaren erdian (5)

---

anabasatsu *izond* anabasaz betea.

Eskuko poltsa bat eta arropa beharrezkoenak erosi nituen Umbertok aholkatutako saltegi denetariko eta **anabasatsu** batean. Anjel Lertxundi

Behin baino gehiagotan eutsi nion liburu bat hartu eta orri-pasa hasteko tentaldiari, ez nuen-eta nire deskuiduren batek dendako oreka guztiz **anabasatsu** hura hausterik nahi. Anjel Lertxundi

---

anabasatu *izond* anabasa bihurtua.

Sunderland-en etxeko korridore **anabasatua** etorri zitzaizkion burura. Lopez de Arana

---

anabastu, anabas(tu), anabasten da *ad* anabasa bihurtu.

Horregatik urtaro hauei urtearen hausguneak deitu behar zaie, eta ez da harritzekoa euretan oinaztu ugari sortzea eta ortzian ekaitz nahasia abiatzea, dena **anabasten** baita buruz buruko guduan, batetik garrak, bestetik urez nahasitako haizeak. Xabier Amuriza

Imajina horietarik lazgarrienean -zer eta apez bat, ostia kontsagratua landatzen emakume baten iztape beltzean- **anabasten** zitzaizkidan nire orduko bi obsesioak: sexua eta erlijioa. Aingeru Epaltza

---

anaboliko *(corpusean ez dago; ETCn **56** agerraldi) izond* anabolismoari dagokiona.

Erreakzio kataboliko degradatzaileek energia sortzen dute, zelulak beharrezko funtzioak bete ditzan, eta, erreakzio **anabolikoei** esker, zelularen konposatu guztiak sintetizatzen dira, elikagaietatik abiatuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Datu horiek guztiak aztertu ondoren, beharrizan minimoa "organismoak kanporatzen duena" izango da, gehi egoera **anabolikoek** (hazkuntzak, haurdunaldiak, edoskialdiak.) eragiten duten nutriente horren beharra. ETC-zientzia, zuzenbidea

Testosteronaren analogo sintetikoak medikuntzan erabiltzen dira, giharren eta ehunen hazkundea bultzatzeko (esteroide **anabolikoak** ; ana -, grekoz, "hazi", "handitu"; "**anabolikoa**" eta "metabolikoa" aurkakoak dira), adibidez, giharretako atrofia duten gaixoetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azken isoprenoak prozesu **anabolikoetako** eraikuntza-bloke gisa balio du, eta, gehiegi bafdin badago, azetato gisa kanporatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gorputz femeninoen eta maskulinoen hurrenez hurrengo izaera **anabolikoa** eta katabolikoa, aldaezinak ziren, eta eragile kultural edo historikoek ez zuten haiengan inolako eraginik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nukleo eukromatikoak, Golgi aparatu handiak eta Nissl gorputzak erakusten digute neurona aktibitate **anaboliko** oso altua duen zelula dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erreakzio horrek, glukolisian gertatzen denak, energia asko askatzen du, hainbat prozesu **anabolikotan** erabiltzen dena: ETC-entziklopedia

Izaki autotrofoek atmosferako CO2 hartu eta Calvin zikloaren bidez finkatzen dute karbonoa baina prozesu **anaboliko** horretarako beharrezko energia kanpotik hartu behar dute. ETC-entziklopedia

Fotosintesia prozesu **anabolikoa** da. ETC-entziklopedia

Glukogenesia glukogenoa sintetizatzen duen bide **anabolikoa** da, glukosatik abiatuta. ETC-entziklopedia

---

anabolismo *(corpusean ez dago; ETCn **62** agerraldi) iz* molekula soiletatik molekula konlexuak sortzeko prozesu metabolikoa.

Anabolismoa molekula soiletatik edo aitzindarietatik abiatuta molekula konplexuak eratzeko prozesu metabolikoa da. ETC-entziklopedia

Metabolismoa bi prozesu konjokatutan banatzen da: katabolismoa eta **anabolismoa**. [...] Katabolismoak eta **anabolismoak** elkarren menpekotasuna dute, eta bien artean metabolismoa osatzen dute. ETC-entziklopedia

Autotrofoak **anabolismo** bidez materia ez-organikoa materia organiko bihurtzeko gaitasuna dute energiaren erabileraz, eta heterotrofoek aldiz, biomasa sortu beharrean hura konsumitzen dute katabolismoz. ETC-entziklopedia

Tarteko metabolitoa da gantzen **anabolismoan**, glukosatik abiatuta lipidoak eratzen direnean. ETC-entziklopedia

Metabolismoari elikagaiak aprobetxatzen laguntzen dio, batez ere karbono hidrato karbohidratoen **anabolismoarekin**. ETC-entziklopedia

Horren ondorioz, gorputzean **anabolismo** egoera gertatzen da, eta pisu eta gantz masa igotzen da. ETC-prentsa

Prozesu horri -ingurumenetik hartutako elikagai bakunez zelula eraikitzea- **anabolismo** deritzo. ETC-zientzia, zuzenbidea

Metabolismoaren barnean bi prozesu metaboliko desberdin daude, **anabolismoa** eta katabolismoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anabolizante *(ETCn **62** agerraldi; orobat **anabolizatzaile** ETCn **78** agerraldi) iz* zelulek materia energetikoa errazago asimilatzeko balio duen gai kimikoa. ik **anabolizatzaile**.

Kontrol batean **anabolizanteak** antzeman zizkioten eta beste batean, testosterona, UCIk debekatutako sustantziak biak. Berria - Kirola

Efedrina, **anabolizanteak**, esteroideak eta klenbuterola, dira, besteak beste, aurkitutako substantziak. Berria - Gaiak

Pilarrek **anabolizanteen** onura erakutsi zion, senarra etxetik zartakoka bota berri zuela aitortu zion batean. Berria - Kultura

Droga sintetikoen, esteroideen, **anabolizanteen** eta hormonen trafikoaren kontra egiten den bigarren operazioa da hau, Gamma II deiturikoa. Berria - Gaiak

Cordovari galdetu zioten ea egia den txirrindularien zakila ohikoa baino handiagoa dela, eta ea **anabolizanteen** ondorio den. Berria - Euskal Herria

Besteak bezalakoa da, industrial hutsa, labelagatik anfetaminaz, **anabolizanteez**, kabala irinez ekoiztu ardi esnez ondua! Itxaro Borda

---

anabolizatzaile *(corpusean ez dago; ETCn **78** agerraldi; orobat **anabolizante** ETCn **62** agerraldi) iz* zelulek materia energetikoa errazago asimilatzeko balio duen gai kimikoa. ik **anabolizante**.

Auzitegiak sei hilabete eta urtebeteko zigorrak ezarri ditu **anabolizatzailez** hazitako idien kasuei. ETC-prentsa

Iaz bertan Hegoafrikako poliziak 12 tona esteroide **anabolizatzaile** harrapatu omen zituen, ehunka milioi dosi egiteko adina. ETC-prentsa

Eta aditu usteko askok nahi dute bertan eskua sartu, ogia oratzen balebiltza: dietetika eta nutrizioa, **anabolizatzaileak**, dermoestetika, injenieritza genetikoa, farmakologia... ETC-prentsa

Bigorexia da gorputzarekin obsesionatuta egotea, gihartsu egon nahiagatik -gorputza hobeto ikusteagatik- ariketa fisiko gehiegi egin eta **anabolizatzaile** eta esteroideak kontsumitzea. ETC-prentsa

Ez dago frogaturik dopinaren zerrendan sartuta ez dauden osagarriek errendimenduan alde handia eragiten dutenik, eta bai ordea asko gaizki etiketatuta eta kutsatuta daudela, estimulatzaile eta **anabolizatzaileekin**. ETC-prentsa

Uste duzu **anabolizatzaileen** erabilera oso zabaldua dagoela gaur egun? ETC-prentsa

Lau lagun atxilotu ditu Guardia Zibilak Iruñean legez kanpoko botikak saldu dituztelakoan; **anabolizatzaileak** eta esteroideak. ETC-prentsa

Hori normala bada ere, ganaduari **anabolizatzaileak** eman bazaizkio xerra "desagertu" egiten da: hori bestelako kontua da, argi. ETC-prentsa

Richeze (Navigare) argentinarra, berriz, ez da lehiatuko, **anabolizatzaileekin** positibo eman duelako. ETC-prentsa

31 urteko txirrindulariak, baina, **anabolizatzaileekin** positibo eman du, joan den abuztuaren 29an egin zioten kontrol batean. ETC-prentsa

Beste batzuen iritziz, ordea, **anabolizatzaile** , estimulatzaile edo substantzia dopatzaile deritzotenak barra-barra baliatzen dituzte kirolariek. ETC-prentsa

---

anaerobiko 1 *izond* oxigenorik gabeko ingurune batean bizi daitekeena; oxigenorik gabeko ingurune batean gertatzen dena.

Arnasketa **anaerobikoaren** "hondakin" bat da azido laktikoa. Berria - Gaiak

Zaborrak metatu eta erreakzio **anaerobikoa** gertatzen uzten da, ondoren hainbat hodiren bitartez gasa motor nagusietara bidali eta energia lortzeko. Berria - Euskal Herria

Ibilbidea oso bestelakoa izan arren, esfortzu maila oso da berdina kasu bietan, ia topean, muga **anaerobikoaren** gainetik ibili behar izaten baita. Berria - Kirola

Dela oxigenoa erretzeko gaitasun gehienezkoa (Vo2max delakoa, 78-85 ml/kg/mi denek), dela potentzia absolutoa (400-500 watio) edo erlatiboa (6-7 w/kg), dela unbral **anaerobikoa** (mailarik onenaren % 80-90 luze irauteko gaitasuna), dela eraginkortasuna (giharrek sortzen duten energia mekanikoaren aprobetxamendua, % 24-28koa) edo dela beste edozein balore fisiologiko erabakigarri, euren arteko desberdintasunak hutsalak dira. Berria - Kirola

2 *digestio anaerobiko* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Digestio anaerobikoa , oxigeno gabezian mikroorganismoek material biodegradagarria deskonpozatzearen prozesuari deritzo. ETC-entziklopedia

Zabor organikoaren **digestio anaerobikoa** ohiko konpostatze erarekin erkatu dute EHUko ikastaroetan. ETC-prentsa

Diseinuan, gaikako bilketaren optimizazioan, hondakinen ordainketan, konpostatzean, prebentzioan, **digestio anaerobikoan** eta errefusaren tratamenduan aditua da. ETC-prentsa

---

anaerobio *(corpusean ez dago; ETCn **853** agerraldi)* 1 *iz/izond* bizitzeko oxigenoa behar ez duen izakia.

Mintzetako oxigenoa agortzen denean, ordea, **anaerobioak** hasten dira lanean, albuminetatik osagai kimiko soilak sortzen eta sortzen. ETC-literatura, saiakera

Anaerobioz gehi-infektatutako uteroaren lepoko kartzinomari darion kirats izpi bat gelan. ETC-literatura, saiakera

Anaerobioak dira pertsonaiak, airerik gabe bizi dira. ETC-prentsa

Aurretiazko bereizketa mekanikoaz gain, digestio **anaerobiorako** eta digestio aerobiorako lineak ditu, eta baita gaika biltzen den materia organikoa konpostatzeko zati bat ere. ETC-prentsa

Muñozen artikulua ere irakurri beharrekoa da, **anaerobioak** izatearen gaixotasunaz jabetzea ezinbestekoa delako gatazka beraren dimentsioa ulertzeko. ETC-prentsa

Barne-bizkarroiek metabolismoa aldatzeko gaitasuna lortu dute; izan ere, **anaerobio** fakultatibo egin dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Glikolisia gertatu ondoren, azido pirubikoak bide desberdinei segitzen die: bide **anaerobioari** edo aerobioari. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erreaktorean, lehendabizi, prozesu **anaerobio** bat gertatzen da, koipeak bereizteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bakterio autotrofo **anaerobioetako** rubiscoak ere oxigenasaren erreakzioa katalizatzen dute in vitro. ETC-zientzia, zuzenbidea

Anaerobio hertsiak edo **Anaerobio** fakultatiboak dira, eta ez dute esporarik sortzen. ETC-entziklopedia

Txikia izan arren, habitat ezberdinak ditu (hortzak, hortzoiak, listua, mingaina, etab), mikrobio aerobioak zein **anaerobioak** bilduz. ETC-entziklopedia

2 *arnasketa anaerobio* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Arnasketa anaerobio edo arnasketa anaerobikoa: oxigenoak ez du parte hartzen, eta bakterio gutxi batzuek besterik ez dute egiten. ETC-entziklopedia

Desnitrifikazioa: **arnasketa anaerobio** mota bat da; NO3--a erreduzitu egiten da eta konposatu nitrogenodun gaseosoak ekoizten dira, bereziki, N2-a. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hartzidura elikagaiari gehitutako legamien, lizunen eta bakterioen entzimek eragindako **arnasketa anaerobio** mota bat da, normalean jakiaren karbohidratoak deskonposatzen dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anaerobiosi *(corpusean ez dago; ETCn **62** agerraldi)* *iz* oxigenorik gabeko bizia.

Anaerobiosian baino 20 aldiz ATP gehiago lor dezakete organismoek glukosarekin aerobiosian haziz gero. ETC-zientzia, zuzenbidea

Anaerobiosia duten elikagaiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Metanogenesia **anaerobiosian** gertatzen den materia organikoaren deskonposizioaren azken fasea da. ETC-entziklopedia

Gizakiarentzat oso onuragarriak izan dira **anaerobiosian** hazteko gaitasuna duten onddoak ere, hartzidurako zenbait produktu ustiatzen baitituzte. ETC-entziklopedia

---

anafase *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi)* *iz* mitosiaren hirugarren fasea.

Fragmoplastoa: mikrotubuluen, mintzen eta besikulen elkarte bat; **anafase** -bukaeran eta telofase-hasieran sortzen da, eta zelula-xafla eratzeko besikulak bat egin aurrekoa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Irristatze indar horiek mitosian hasierako poloen ardatzarekiko banatzea azaltzeaz gain, **anafase** berantiarreko ardatzareen elongazioa azaltzen du. ETC-entziklopedia

Lau fase ditu: profase I, metafase I, **anafase** I eta telofase I; luzeena eta konplexuena lehenengoa delarik eta hobeto ulertzeko beste bost azpifasetan banatzen delarik: leptoteno, zigoteno, pakiteno, diploteno eta diazinesis. ETC-entziklopedia

Mitosian 4 fase desberdintzen dira: Profase, Metafase, **Anafase** eta Telofasea. ETC-entziklopedia

" **Anafase** I": Kromosoma bi zatitan banatzen da eta bi geratzen dira. ETC-entziklopedia

---

anafilaktiko *(corpusean ez dago; ETCn **64** agerraldi)* 1 *iz* alergia shock akutuari dagokiona.

Aho, eztarri eta belarrietako azkura, beherakoa, urtikaria, asma, errinitisa, hipotentsioa eta, kasu larrietan, talka **anafilaktikoa** . ETC-prentsa

Erreakzio **anafilaktikoak** heriotza ekar dezakeenez, inoiz horrelakorik izan baduzu, eraman beti zurekin adrenalina injektagarria, eta nola erabiltzen den ikasi. ETC-prentsa

Erantzun alergiko **anafilaktiko** horiek arriskuan jar dezakete pertsonaren bizitza, zenbait kasutan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ebakuntza barneko erreakzio **anafilaktiko** eta anafilaktoideen intzidentzia 1/4500-1/28000 bitartekoa dela uste da. ETC-zientzia, zuzenbidea

"Anisakis"ek kutsaturiko arrain bat jateak E immunoglobulinak (IgE) eragindako erreakzio **anafilaktiko** bat sor dezake. ETC-entziklopedia

Baldin odol-emailea tetanoaren edo difteriaren aurkako txertoa hartu berria bada, odolean sortutako antigorputzek talka **anafilaktikoa** deitzen zaiona eragin dezakete transfusioa egitean. ETC-entziklopedia

2 *shock anafilaktiko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Jakiekiko alergiek azalean, digeritze aparatuan eta, oso gutxitan, arnasbideetan eragiten dute; baina horietan larriena **shock anafilaktikoa** da. ETC-prentsa

Sinatzen du agiri bat esanez garbi azaldu zaizkiola arriskuak (ohikoa ez izan arren gerta liteke **shock anafilaktikoa**, heriotza ere eragin lezakeena) eta bere gain hartzen duela terapiaren ondorioen erantzukizun oro. ETC-prentsa

Gaixo gehienek onartzen badute ere, biztanleriaren %5ak alergia dio penizilinari. Horiengan, penizilinak **shock anafilaktiko** larria eragin dezake. ETC-entziklopedia

---

anafilaxia *(corpusean ez dago; ETCn **98** agerraldi; orobat **anafilaxi**)* *iz* alergia shock akutua.

Sintomak oso diferenteak izan daitezke, hasi aho inguruko gorritze sinple batetik eta **anafilaxia** izeneko erreakzio oso larriraino. ETC-prentsa

Kasu larri horietan (**anafilaxia** kasuetan) alergia sorrarazten duen janariak erreakzio sistemikoa eragingo du, gorputz osoari erasanez. ETC-prentsa

Anafilaxi shocka da egoerarik larriena erreakzio alergiko bat gertatzen denean. ETC-prentsa

Adituen ustez, **anafilaxia** edo alergia erreakzio larriak elikakagaiek sortzen dituzte gehienetan. ETC-prentsa

Nafarroan elikadurarekin lotutako alergiak 45.000 herritarrek jasaten dituzte; urtero 150 kasu daude **anafilaxia** larriekin. ETC-prentsa

Mylan enpresak, eskubideak eskuratu eta 51 euro ingurutik, 285 eurora igo zuen **anafilaxia** ekidin dezakeen tratamendu eraginkor hori. ETC-prentsa

Alergia badiegu, azalean sor ditzakete sintomak, edo erreakzio sistemiko bat: **anafilaxia**, alegia. ETC-prentsa

Anafilaxi edo shock anafilaktikoa: erreakzio alergikorik larriena, hilkorra izan daitekeena. ETC-entziklopedia

Banakakoaren, alergenoaren eta sarrera moduaren arabera, sintomak sistema osokoak (**anafilaxi** klasikoa) edo gorputz-sistema zehatzetan lokalizatutakoak izan daitezke. ETC-entziklopedia

---

anafora *iz* figura erretorikoa, errepikapenean datzana.

Honenbestez, ez da batere harritzekoa antitesi eta **anafora** izatea, alde handiz gainera, bertsolarien testuetan zabalen ageri diren irudiak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Izan ere, litotesa dugu, itxuraz, bertsolarien ironiarako estrategia nagusia, antitesia eta **anafora** diskurtsoa antolatzeko baliabide erabilienak diren bezala. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

anaforiko **1** *izond* anaforarena, anaforari dagokiona.

Egiten dira beste era bateko neguko erlojuak ere, **anaforikoak** esaten direnak, eta metodo honekin egiten dira: analemmaren trazatuaz baliatuz orduak jartzen dira brontzezko hagatxoak erabiliz zentrotik hasi eta erlojuaren aurreko aldean. Santiago Iruretagoiena

Oinarri-oinarrizkoa izan zen Egañak bertsoaldi honetarako antolatu zuen egitura **anaforikoa**, eta arazo handirik gabe eutsi zion horrenbestez. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gogoratu besterik ez; **anaforikoak** eta erreskada luzeak (jatorrizko testuaren ezaugarri agerikoak) premiazko nabarmendu ditugun bakar horietan datoz. Andres Urrutia

2 *izenordain anaforiko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Esate baterako, ezaguna da elkar **izenordain anaforikoak** ez duela aitzindaria perpausaren barruan bilatzen, baizik eta askoz mugatuagoa den bere perpausaren barruan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izenordain anaforikoa semantikoki hutsik dago eta aurrekariarekin ezartzen duen erreferentziari esker bereganatzen du esanahia. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anagnorisi *iz* teatro lan edo nobela batean, pertsona batek beste baten identitatea ezagutzea, edo pertsona baten identitatea jakinarazten den unea.

Propio, ozpin guztia zaurira isuriz, egin nuen horrela, nire bizitzan ere halatsu jokatu baitu beti Teresak: **anagnorisi** baten moduan agertu zen nire bizitzan, bost urte egin nituen **anagnorisi** batekin bizitzen, eta **anagnorisi** baten moduan bidali nuen, mutis!, mutis!, nire bizitzatik. Teresaren aurkezpena **anagnorisi** kasu garbi bat da KNan. Anjel Lertxundi

---

anagogiko *izond* anagnorisiari dagokiona.

Ikerketa filosofikoaren jarraipena, eskuarki, arrakontru halabeharrezko baina **anagogikoa** izan ohi da, izaki beraren eta lagun duen erreplika esentziagabe eta joskintzazkoaren artekoa. Xabier Olarra

---

anagrama *iz* hitz bat osatzen duten letrak beste hurrenkera batean jarriz sortzen den hitza.

Hitz bateko letrak nahastu eta beste hurrenkera batean jarrita sortzen den hitzari **anagrama** deritzo. Iñaki Arranz

---

anagramatiko *izond* anagramarena, anagramari dagokiona, anagrama osatzen duena.

Sei hitz hauek, esate baterako, **anagramatikoak** dira: *balio, baloi, biloa, bolia, iloba* eta *oliba*. Iñaki Arranz

---

anaia *(orobat **anai** eta **anaie** g.er.)* **1** *iz* gizonezko senidea. ik **neba**; **arreba**.

Marx **anaien** film bat ematen zuten latindar auzoko zinema batean, zaldi karrerei buruzko bat, hara joan nahi nuen nik. Harkaitz Cano

Anaia, neskarena, Jan deitzen zen, ehun eta berrehun metroko lasterketetako korrikalaria. Fernando Rey

Milanera itzuli zenean, gune ilustratuetan murgildu zen; hauek Pietro eta Alessandro Verri **anaien** etxean biltzen ziren, "Accademia dei Pugni" delakoan. Juan Martin Elexpuru

Gwain eta haren **anaia** Gariete Lanceloten atzetik irten, eta inguruko zelaietan ibili ziren bila; alferrik baina. Juan Kruz Igerabide

-Bai, **anaia**, lasai nago -erantzun zuen, ozenki, Kashirinek, lasai eta are pozik balego bezala. Jose Morales

Bittor Ubedak, gaztetan Jazintorekin ibili zen Eugenioren **anaia** gazteak esan digunez, "Arruabarrenak berak erosi zion soinua." Lehengo ospea hartu zuen berriro, despedida eta horrelakoetarako deitzen zuten maiz. Koldo Izagirre

Anaia kartzelan zuen. Harkaitz Cano

Aspaldi handian, India eta Txinako lurraldeetan, izan omen ziren bi **anaia**, Xariar eta Xazaman, beren erresumak zuzen eta artez gobernatzen zituztenak. Patxi Zubizarreta

Etxeko gizona nintzen eta neuk zaindu beharko nituen aurrerantzean ama eta amaren sabeleko ume txikia, **anaia** txikia edo arreba txikia, amaren tripan hazi eta edozein egunetan kanpora irtengo zena nirekin paseatzera. Joseba Sarrionandia

Horixe, **anaia** gazteena! Tapax, hori duk... Pablo Sastre

Urdaibain barrena Ander **anaiarekin** batera txalupan ematen dituen orduek ere lagunduko dute begiradaren fiertasuna, azalaren latza eta kalparraren poesia lantzen. Markos Zapiain

Hiru urte zituenean, **anaiarekin** batera bere sorterrira eraman zuen amak, Ingalaterrara. Agustin Otsoa

Eta ez ginela diodanean, ez naiz ari Aita Santuaren plural maiestatikoan, **anaia** Juan eta bion izenean baizik. Joxerra Garzia

Anaia bikiak bizkor ibiltzeko esan zion atzetik, eta bizkor ibiliko zen, zeren eta segundo bat geroago desagertua baitzen... baina nola egin ote zuen? Iñaki Mendiguren

Urkatzea aski ez, gainera, lau **anaietatik** txikia ez beste hiruak, lau haragitan partitu, eta hamar lekutan banatu dituzte puskak: Patziku Perurena

Anaia bizki bat badu Bizkaian, gutxi gora behera beste hainbeste saltzen duena. Joxerra Garzia

Eskolako patioan burua ireki nion mutikoaren **anaia** etorri eta sekulako jipoia eman zidan. Sonia Gonzalez

Behinola, bi **anaia** gazte bizi ziren urruneko herri baten. Jon Arretxe

-Nora zoaz, **anaia**? -galdetu zuen jaun zahar ongi jantziak. Matías Mujika

Bi **anaiek** paretaren kontra jarri dute bizkarra. Alberto Barandiaren

Txandala ahaztu egin zitzaidan, eta hiruhilekoan jadanik hirugarren aldia baitzen, zigortua ez izateko, Benjamin-en **anaiari** eskatu nion uniformea. Jesus Mari Mendizabal

Fargo egin zuten **anaietatik** bat den Ethan Coenen Gates of Eden ari naiz irakurtzen. Harkaitz Cano

Haren **anaia** Luis eta Alderdiko burukideek beharko zuten izan hura ukituko zutenak. Edorta Jimenez

-Ba, nahi duan guztia egiten duela esaten dik nire **anaiak**. Koro Navarro

Mikelek argitu zidan atso bat bizi zela han, bera bakarrik, **anaia** mutilzaharra hil zitzaionez geroztik, eta atso hura zela aldizkarian demandan azaldu zitzaiena. Xabier Mendiguren Elizegi

2 ordena erlijiosoetan, fraile mota bati ematen zaion izena.

Batzuk abertzale eskuindar, moderatu, poliki ibiltzearen zaleak, **anaia** Martin bezala; beste batzuk herrikoiago, jatorrago, ezkertiarragoak, **anaia** Jesus Mari bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina Santa Barbararekin bakarrik zuen latinezko harremana, lelo hura bitarteko: huraxe izan da, derradan bide batez, nik bizitzan ikasi dudan latin bakarretakoa, La Salleko ikastetxean ibili nintzen arren, salletar **anaiek** ere baztertua baitzuten latina orduko beren errezoetatik. Joan Mari Irigoien

3 irud/hed

- Lehen deklarazioan esan zenuen zure **anaiak** mendekatzeko hil zenuela Canovas jauna. Koldo Izagirre

Batasuna behar dogu, arrebok, **anaiok**! Juan Luis Zabala

Laburbiltzeko: botere ekonomikoa familia gutiren eskuetan bildua; botere politikoak amerikar **anaia** handiaren aholkuak hurbiletik jarraitzen ditu; administrazioa arras usteldua da, funtzionarioak arras gutti pagatuak baitira... Herri guzia pobreziaz itotzen da emeki. Ramuntxo Etxeberri

Herengusuak ere sekula izan ez ginenok, legeak **anaia** bihurtu gaitu. Joxe Azurmendi

Une batez, gizakiarenganako beldur atabikoak menderatua, piztiak atzera egin zuen, bere **anaiei** deialdi luzea zuzenduz; eta haiek goseti erantzun zuten, harik eta gorputz makurtu eta masailezur lerdetsuzko uztai grisa agurearen inguruan itxi zen arte. Patxi Zubizarreta

Hona ni hemen, bada, bakarrik munduan, ez baitut jada ez **anaiarik**, ez lagunik, ez gizarterik, neu neroni besterik. Imanol Zurutuza

Patxik esku pistolaren sabela garbitzeko manera erakusten ziola, Txoko berazten zen, Hegoaldeko **anaia** handiak, hogei urteren aurrerapena zuena borroka armatuaren alorrean, Iparraldearen askatze urratsak ederki laguntzen zituela nabaritzen zuelako. Itxaro Borda

Baten batek esango du orduan: **anaia**, zergatik kontatzen dizkidazu istorio horiek? Koldo Biguri

Euskalerriaz batera nago... /... bihotz barneko penetan;... /... **anaiak** alkar hartu ezinik,... /... etsaiak su eta ketan,... /... esan dudana gezurra bada... /... urka nazazue bertan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

4 ***anai-arreba*** *(orobat* ***anaia-arreba*** *g.er. eta* ***anaiarreba*** *g.er.) pl* anaien eta arreben multzoa. ik **neba-arreba**.

Hauek ditut nik ama eta **anai-arreba**.

Ama Dimorrekin ezkondu eta bost **anai-arreba** baditut, denak ni baino gazteagoak. Itxaro Borda

Burgosen, guraso, **anai-arreba** eta osaba-izebekin egin zitzaketen bisitak. Jokin Urain

Biziki jostatu dut haur denboran, zeren zortzi **anai-arreba** ginen, eta gira beti, uroski. Menane Oxandabaratz

Niregatik aita-amak, **anai-arrebak**, emaztea eta seme-alabak, etxea eta lurrak uzten dituenak, ehun halako jasoko du eta betiko bizia izango ondare. Askoren artean

"Anaia unibertsala" deitu izan zaio, **anai-arreba** baititu sorkari guztiak, **anai-arreba** bereziki behartsuak eta legendunak. Askoren artean

Gutunak erakusten du zer ziren jatorrian **anai-arreba** penitentziagileen elkarteak. Askoren artean

Batzuk, nire **anai-arreba** erdiak ziren. Aingeru Epaltza

Batek esan zion: -Adizu, ama eta **anai-arrebak** dituzu kanpoan, zurekin hitz egin nahian. Elizen arteko biblia

Gurasoek dendan laguntzera behartzen gintuzten hiru **anai-arrebok**. Txillardegi

Aita ez zegoen etxean, beti bezala, **anai-arrebak** ere ez, estaziora abiatu nintzen, trena iritsi zen eta traste zaharkitu hartan sartu nintzen. Mikel Hernandez Abaitua

Demagun bakarrik bizi dela gizon bat; ez du lagunik, ez seme-alabarik, ez **anai-arrebarik**, eta hala ere, etengabe dihardu lanean, ez da asetzen aberasteaz, galdetu ere ez du egiten bere baitan: "Norentzat ari ote naiz lanean, neure buruari atseginak ukatuz?". Elizen arteko biblia

-Nire ama azken aldiz agurtzera etorri naiz eta orain etxera noa nire **anai-arrebekin** negar egitera. Jon Maia

Norak beste batekin engainatu ninduen, **anai-arrebekin** ez dut inoiz oso harreman minik izan, eta lagunak gutxi dira, haurtzaro eta gaztarokoak Bilbon eta herrixkan gelditu ziren, Gasteizen eta Donostian ez daukat askorik. Mikel Hernandez Abaitua

5 ***anaia txiker*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***4*** *agerraldi)*

Esandakoa: uste dut begirunez ekarri zaituztedala zure **anaia txikerra** eta zu, ezta? ETC-literatura, saiakera

Dagoeneko hire falta sumatzen diagu, **anaia txikerra**, amaren esanetan etxea orain hutsik zagok, guztiz, bera bakarrik zagok, guztiz, Mustafa beti kanpoan zagok eta Abdelkebirrek, ongitxo dakianez, emaztearen ardura dik. ETC-literatura, saiakera

Juan Antonioren **anaia txikerrak**, aitaren izenkidea zenak hots, medikuarena ere aukeratu zuen, eta sorterrian berean egin ahal izan zuen bere lana, Deban alegia, baita Azkoitian eta Soraluzen ere. ETC-literatura, saiakera

6 ***bular anaia*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***3*** *agerraldi)*

Bestalde elkarrekin titia edan dutenak odolezko ala paradazko haurride izanki, bular senideak (**bular-anaia**, bular-ahizpa eta beste) dira. ETC-literatura, saiakera

7 ***sabel anaia***

Hitzek diskurtsoa osatzen dutelako hartu zuen urte hasieran Bilboko jaun mera Azkunak Frantziako Barne ministro Sarkozyren **sabel-anaiaren** antza. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 15 aldiz agertzen direnak)

aitaren anaia (17); **amaren anaia** (16); **anaia bat** (138); **anaia batek** (74); **anaia baten** (19); **anaia bati** (28); **anaia bikiak** (16); **anaia da** (21); **anaia eguzkiaren** (22); **anaia gaztea** (31); **anaia gazteak** (15); **anaia gazteena** (22); **anaia guztiak** (75); **anaia guztiei** (28); **anaia guztiek** (41); **anaia guztien** (20); **anaia haiek** (20); **anaia hark** (21); **anaia hil** (40); **anaia honek** (18); **anaia hura** (48); **anaia izan** (18); **anaia laiko** (16); **anaia maite** (42); **anaia nagusi** (129); **anaia nagusi felix** (51); **anaia nagusia** (17); **anaia nagusiak** (17); **anaia santu** (21); **anaia txiki** (42); **anaia txikia** (30); **anaia txikiak** (40); **anaia txikiaren** (18); **anaia txikien** (72); **anaia txikien ordena** (18); **anaia txit** (19); **anaia zaharra** (18); **anaia zaharrena** (22); **anaia zaharrenak** (23); **bere anaia** (252); **beste anaia** (75); **bi anaia** (105); **ene anaia** (79); **gure anaia** (64); **haren anaia** (87); **hire anaia** (31); **hiru anaia** (29); **neure anaia** (20); **nire anaia** (199); **zen anaia** (64); **zeure anaia** (18); **zuen anaia** (66); **zure anaia** (72)

anaiak bezala (19); **anaiak eta biok** (17); **bere anaiak** (57); **beste anaiak** (41); **bi anaiak** (107); **gure anaiak** (16); **haren anaiak** (17); **hire anaiak** (18); **hiru anaiak** (16); **nire anaiak** (114)

anaiaren bat (22); **anaiaren batek** (17); **bere anaiaren** (47); **nire anaiaren** (42)

---

anaiarreba ik **anaia**.

---

anaiarreba ik **anaia**.

---

anaiarte *iz* anaitasun loturaren batek biltzen dituenen elkartea. ik**anaidi**; **haurridetasun**.

Anaia ministroak Frantzisko konbentzitu nahian zebiltzan, anaiei elkartean bederen zerbait edukitzen utz ziezaien, **anaiarte** hain handiak zeri heldu eduki zezan. Xabier Olarra

Anaiarte honetako Ministro jeneralaren hautaketaz eta Mendekosteko Kapituluaz. Askoren artean

Eta ez bedi inolaz ere anaiarik herriari predikatzera ausartu, baldin eta **Anaiarte** honetako Ministro jeneralak aztertu eta onartu ez badu, eta predikatzeko ofizioa eman ez badio. Askoren artean

Hemen ageri da, lehen aldiz, taldearen deiturari hobeto dagokion "Fraternitas" (**anaiarte**) hitza. Askoren artean

Hasierako *fraternitas* edo **anaiarte** xumea Ordena handi bilakatzen ari zen eta eliz ordena instituzionalean gero eta integratuagoa zegoen erakunde erlijioso. Askoren artean

Aholkua, batik bat ministroen esanera iraun dezaten, **anaiarte** -bizitzatik kanpo nor bere erara "hara-hona" ibili gabe; baita liturgi ofizioa leial bete dezaten ere, Erregelan esana dagoenez. Askoren artean

Bandi Citromi esker askoz gehiago ikasi nuen elkarte, erakunde, **anaiarte** edo dena delako bitxi hartaz; talde horietako batek -erreskadan nire ezkerretara- heldu berritan ere atentzioa eman zidan. Urtzi Urrutikoetxea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anaiarte honetako ministro** (3); **anaiarte osoaren ministro** (3); **edo anaiarte** (3)
> **anaiartean bizi** (3)
> **anaiartearen lehen** (4); **frantziskotar anaiartearen** (4); **hasierako anaiartearen** (3)
> **anaiarteko gerraren** (4)

---

anaiarteko *izlag* anaitasunezkoa; senideen artekoa.

Anaiarteko gerra gero eta bortitzagoak izan ziren heriotza-kausa arruntena hiru belaunaldietako zibilizazioen artean. Iñaki Mendiguren

Eta beraz, zigortu egingo dut! Jendetzak eman baitizkie gatibu edomdarrei, **anaiarteko** itun-hitzari eutsi gabe. Elizen arteko biblia

Hori, gure artean, oro har arraroxkoa izaki, are gehiago bere **anaiarteko** jendeetan. Aingeru Epaltza

Ez al dut, menturaz, nire baitan sentitzen **anaiarteko** maitasuna sutan, gizonezko norbaitek bere fedearen edertasunari tinko eustearren ikaragarrizko torturak nozitu zituela entzutean? Imanol Unzurrunzaga

Anaiarteko maitasuna predikatzen. Anton Garikano

Buru-belarri naiz arituko **anaiarteko** dema jator honetan. Juan Garzia

Probaldiko urtea betetzean, onartuak izan bitez **anaiarteko** obedientziara, bizimodu eta Erregela hau beti gordetzeko hitza ematen dutelarik. Askoren artean

Selekzioko **anaiarteko** giroa gaiztotu egin zen, eta Wome taldetik at utzi zuen hautatzaileak Afrikako Koparako. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anaiarteko gerraren** (4)

---

anaiatsu *izond* anaitasunez betea.

Etxe Goxoko gizon guztiek -Halle agertu aurretik eta ondoren- lakrikunkeria xume **anaiatsu** batekin tratatu zuten, hain xumea ezen aztarrika jardun behar zenuen hura igartzeko. Anton Garikano

---

anaiatxo *iz* anaia txikia.

Anaiatxoak biaoa egiten duen bitartean, Vishnu beste haurrak bilduak dauden tokira doa. Gotzon Garate

Handik pixka batera emakumeak irten ziren, biak bakarrik, azkenaldi hartan Ostolazari ilehoriek **anaiatxoa** asaldatzen ez ziotelako seinale. Migel Angel Mintegi

Ekintza bateratu eta trinkoetan behar dira bildu, ez, zuk nahi duzun bezala, lehendabizi zure **anaiatxoa** eskolatik itzuleran geletan zehar itzal bat balitz bezala ibiltzen ikusi, ate ostean ezkutatu eta asmo bat pentsatzen. Josu Zabaleta

Ondorioztatu genuen nikela burdina dibalentearekin batera zihoala beti ere, bikario batek bezala ordezkatzen zuela, itzal ilaun bat bezala jarraitzen ziola noranahi, **anaiatxo** txiki-txiki bat bezala: ehuneko 0,2 nikel, ehuneko 8 burdina. Juan Garzia

- **Anaiatxo** , ikusi al duzu borroka? -galdetu zion Fionnek Oisini, Branek aurpegia miazkatzen zion bitartean. Joanes Urkixo

---

anaidi *iz* anaiartea, bereziki erlijiozko helburua duena.

Handik Hiponara aldatu, beste **anaidi** bat fundatu eta 395-6an gotzain izendatu zuten. Imanol Unzurrunzaga

Ez da gauza erraza jakiten zertan oinarritzen zen Karitatearen dotrina hori baina pentsa genezake fraticelli-ek eta Espiritu Askearen **anaidiek** zabaltzen zutenaren antzekoa izango zela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eskalaren mutur gorenean otomandar gobernua aurkitzen dugu: bere administrazio-premien aurrean, gizakiaren buruargitasunak asmatu eta giza ausardiak egin dezakeen guztia egin zuen, eta sortu zuen herri-administrazioa ez zen **anaidi** profesional hutsa, baizik eta erlijio-ordena baten baliokide sekularra. Iñaki Mendiguren

Erdi Aroan **anaidi** aberatsenetako batzuek beren jabetzak modu sinple eta merke honetaz baliatuz bereganatu zituzten, eta Ingalaterrako Henrike VIII.ak behin **anaidi** batek fraide-jabariz beretuak zituen lurralde zabal batzuk konfiskatzera bere funtzionario bat bidali zuenean, honela esan zion Abadeak: [...]. Xabier Olarra

Honelakoa zen Indiara joan zen klase ertaineko administratzaile profesionalen **anaidi** berria. Iñaki Mendiguren

Tagastera itzuleran **anaidi** monastikoa fundatu zuen eta 391n apaiz ordenatu zuten. Imanol Unzurrunzaga

Anaidi islamiko eta hindu horietan errusiar alderdi komunistaren ethosa oso garbi bereizten da jada. Iñaki Mendiguren

Lehenengo kristauen xalotasun eta **anaidia** erdi-karitatezkoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Naturaz besteko naretasun hori izan zen, itxuraz, Krishna **anaidiko** haren kideek "dohain"tzat hartu zutena, eta Gregek berak ere, noizbait, hitz horixe erabili zuen. Xabier Olarra

-Orduan ez zara **anaidikoa** . Koro Navarro

---

anaierdi *iz* anaiordea.

Saddam Husseinirakiar buruzagiaren **anaierdi** bat arrastatu dute Sabaui Ibrahim al-Hassan izenekoa. Herria

---

anaigai *iz* anaiarte bateko kidea izateko prestatzen ari den pertsona.

Portziunkula Ordenaren sorleku eta eredu bezala hartzen zen; han hartzen ziren **anaigaiak** (PerLe 56) eta han ospatzen zen Mendekosteko kapitulua. Askoren artean

Hori egin ondoren, **anaigaiak**, nahi badu eta eragozpenik gabe Espirituaren arabera ahal badu, sal bitza ondasun guztiak eta saia bedi behartsuei banatzen. Askoren artean

Anaigaia itzultzean, ministroak eman biezazkio urtebeterako probaldiko jantziak, hau da: bi tunika txano gabe, gerriko soka, azpiko galtzak eta sokarainoko longaina. Askoren artean

---

anaiki *adlag* anaiei dagokien eran.

Nork zer egin meza hortan, **anaiki** partekatu genuen. Marzel Etxehandi

---

anaikide *iz* anaiarte edo anaidi bateko kidea.

Hain sutsua zen haien arteko maitasuna, erraza iruditzen baitzitzaien bizia ematea, ez Kristoren maitasunagatik bakarrik, baita beste **anaikideen** gorputz-arimetako salbamenagatik ere. Askoren artean

---

anaikiro *adlag* anaiei dagokien eran.

Anai Jordan Gotha eta Eisenach artean irten zitzaion bidera eta, begiramenez eta **anaikiro** musu emanez elkar agurtu ondoren, eseri egin ziren. Askoren artean

Urte mordoa edota bizitza osoa esklabotzan eta oinazean igaro beharko duela ikusten duenean, bere herrikideen begirakunepean, hauekin libre eta **anaikiro** bizi ordez, babesle zituen lege berberen esklabo. Juan Martin Elexpuru

Zeren, baldin lehen giristinoak **anaikiro** bizi izan baziren, zergatik ez mundu guztia, Jainkoaren laguntzarekin...? Joan Mari Irigoien

---

anaikor *izond* anaitasunezkoa.

Ongi deskribatzen du kapituluko giro **anaikor** eta alaia ere. Askoren artean

Maitasun **anaikor** eta garbiz maite dut gizon zintzo eta adoretsua. Imanol Unzurrunzaga

Mundu ere ez zen eztijariozko mundu hura, ezdakitnoizko gizarte libre **anaikor** hura, foruen eta euskararen galera baino lehenagoko sasoia edo nahi dena, zer nahi den eta huraxe: nork bere galera ttikiak hautatzen ditu, izenik gabeko galera handiaren lekua betetzeko. Iñaki Segurola

Antonio eta biok erabat harrituta geundela ez dut nik orain ukatuko, baina gizon haren jarrera **anaikor** eta baketsua ikusita, guk ere irribarre egin eta ongi etorria eman genion. Aitor Arana

---

anaiorde *iz* norbaitentzat, bere amaren edo aitaren, baina ez bien, semea.

Anaiordearen ehorzketaren egun berean hartu zuen Migelek haren lekua zapategian. Aingeru Epaltza

Gazteena zen hiru **anaiordeen** artean -ama bera, aita diferenteak-, Garnerri salduak eta bertan atxikiak, baserritik ateratzea debekatuta, hogei urtean. Anton Garikano

Lorenzok **anaiordeari** begiratzen dio. Pablo Sastre

Charles Auguste Louis Joseph, Mornyko kondea eta gero dukea, Napoleon III.aren **anaiordea**. Karlos Zabala

Nire **anaiordea** bi makilen laguntzarekin ibiltzen zen, agian buruan egin nizkion zaurien ondorioz. Matías Múgica

Harekin etsaitu nintzenetik orain arteko urte lotsagarri haietan erdi ahaztua nuen, nire **anaiorde** Krapotkin printzea! Matías Múgica

Nik baino lehen besarkatu zuen nire **anaiorde** gorrotagarri haren lehengusua. Matías Múgica

---

anaitar *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) izlag* anaitasunezkoa. ik **anaikor**.

"Apaizen arteko harremanak behar adina **anaitarrak** ez" direla diote, eta "agintariekiko harremanetan konfiantza falta" nabaria dela. ETC-prentsa

---

anaitasun 1 *iz* edozein arrazoirengatik familia batekoak –hitzaren esnahi zabalean– sentitzen diren pertsonak batzen dituen lotura.

Errepublika utopikoaren mugak eta errepublika historikoarenak ez datoz inoiz bat, hori da kontua, eta bien arteko eremu zabal lanbrotsu hori jorratu nahi du letren errepublikak, bai baitaki askatasuna, berdintasuna eta **anaitasuna** utopia direla. Anjel Lertxundi

Denek ezagutzen dugu hitzetan hirukote famatua: Askatasuna, Berdintasuna, **Anaitasuna**, aho beteka gure politikariek derasatena. Herria

Gizaki guztiak berdinak garela, libreak garela, elkar errespetatu behar dugula esanez, nagusitasuna, indarra eta garaipena kondenatu eta erruki, ahultasun, **anaitasun** eta berdintasunarekin ordezkatu ditu. Askoren artean

Antzuola eta Aiherra herriek, beren **anaitasun** edo adixkidetasuna hitzarmen baten bidez ofizializatuko dute, bai Aiherrako herriko etxean eta bai Antzuolako udaletxean. Herria

Berdintasuna, **anaitasuna** eta askatasuna ikur dituen Errepublika honek, hizkuntza bakarra du onartzen guztientzat: frantsesa. Hasier Etxeberria

Iraultzaren artikulu nagusiak, hots, Askatasuna, Berdintasuna, **Anaitasuna** onartzea besterik ez zitzaion eskatzen egiazko citoyen edo "hiritar" izan nahi zuen gizaki bakoitzari. Piarres Xarriton

Sinetsirik zegoen ezen Paradisurako bidean zegoela Lurra, Kristok gizonen arteko **anaitasuna** predikatu zuenez gero, eta Kristok, historiaren buruan, garaile behar zuenez gero. Joan Mari Irigoien

Zer den Egia -letra handikoa- eta zer Zuzena (bere produktuak zituen!), nola aitzinarazten den historia (bere eskuetan zeuzkan progresoaren uhalak!), nola fabrikatzen den Zuzenbideko Estatuan Askatasuna, Berdintasuna eta **Anaitasuna**. Joxe Azurmendi

Anaitasuna berriz, laguntasunaren gisara hartuz, ez zitzaion axola jendeen arteko kidetasunean ez baitzuen sinesten. Elena Touyarou

Gizakiaren **anaitasuna** Jainkoaren aitatasunetik zetorren. Iñaki Mendiguren

Gizatasunak, **anaitasunak** eta on egiteko gogoak erakuts diezazkigutela gure elkarrenganako betekizunak, eta bakoitzak bete ditzala bereak, horretarako naturak bakoitzari eman dizkion indarren arabera. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gujaraten sortu zen Mahatma Gandhi, maitasuna eta gizaki guztien arteko **anaitasuna** aldarrikatzen zituen iragarle handia. Gotzon Garate

Komunione anitz izan zen; kontent joan ginen holako **anaitasunak** bihozberoturik. Marzel Etxehandi

Bakearen eta **anaitasunaren** iragarle bihurtu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arima motzen birtuositatea kausa nobleen garaipenerako lagungarri izan zitekeela uste izan dugu, egoismo trebeak sakrifizio espiritua bero zezakeela, bihotzaren lehortasunak eman zezakeela, diskurtsoen haizearen indarrez, **anaitasunaren** edo maitasunaren oinarria. Josu Zabaleta

Marseillaiserekin hasi ziren eta milaka ahotsek kantatu zuten askatasunaren, berdintasunaren eta **anaitasunaren** aldeko eresi hura. Felipe Juaristi

Egun berri bat, bai, **anaitasunaren** egun berria, orain artean ezagutu gabea! Joan Mari Irigoien

Bi ideal gatazkatsu horien artean benetako adiskidetze bakarra **anaitasunaren** ideal bitartekarian aurkitzen zen; eta, gizakiaren gizarte-salbazioa ideal nagusi hori errealitatera aldatzeko zeuzkan aukeren mende baldin bazegoen, konturatuko zen politikarien buru-argitasunak ez zuela urrutira eramaten, **anaitasuna** lortzea gizakion irispidetik harago baitzegoen, horiek beren ahalmenaz bakarrik fidatzen ziren bitartean. Iñaki Mendiguren

Denon aita bat gabe, ez dago **anaitasunik**. Jenaro Garate

Halatan ezagutu ahal izaiteko Tomas Morok deskribatu zuen lur hura, Utopia deritzana, non gizonen arteko harremanak arras bertzelakoak diren, justizian eta **anaitasunean** oinarrituak. Joan Mari Irigoien

Gero, uztailaren 25arekin, faxismoaren barne-suntsidura etorri zen, plazak **anaitasunez** elkarturiko jendetza gainezka, askatasuna jauregi-intriga batek eman dion herri baten bozkario denboraz kanpoko eta prekarioa. Juan Garzia

Hala bada, haurtzaroa elkarrekin igaro zuten, **anaitasunezko** adiskidetasunean baturik. Patxi Zubizarreta

Otsaileko gertaeretan Paris odoldu zelarik, atsekabetu eta klubez klub ibili zen odol haren ordaina eskatuz eta "mundu osoko errepublikazaleen **anaitasunezko** musua" aldarrikatuz. Karlos Zabala

Bi herrien arteko **anaitasunezko** harremanak. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Elgar ontsa ezagutu genuen eta **anaitasun** handian bizi ginen. Marzel Etxehandi

Geroxago, bazkaria, **anaitasun** osoan, Uharteko Camou jatetxean. Herria

Eguna iragan da giro goxo eta **anaitasun** hoberenean. Herria

Lehenik meza, gero dantza batzu eta ondotik bazkaria, oraiko eta lehengo dantzari frango bilduak **anaitasun** goxoenean. Herria

Etnia eta arraza orotako **anaitasun** unibertsala. Joan Mari Irigoien

Garai bakoitzak Ama Birjina honi begiratzen dio, semea besoetan duela, eta **anaitasun** xume bat, **anaitasun** liluragarri eta mingarria sortzen da belaunaldi desberdinen, herri desberdinen, arraza eta denbora desberdinen artean. Felipe Juaristi

Afrikan, elkartasuna, biziaren zoriona ezagutu ditut eta egiazko **anaitasuna**. Herria

Ez huen sekula nire dirurik hartu nahi izan, ez oparirik ere; ez huen sekula utzi gure adiskidetasuna benetako **anaitasun** bihur zedin. Xabier Olarra

Belaunaldien arteko eta nazioarteko **anaitasuna** gure zereginaren oinarri da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Orotarat, mugaren bi aldetako 27 kofradia bildu dira gaitzeko **anaitasun** goxoan. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ihauterietako harat-hunatetarik landa, joanden apirilean dantzan arizan dira Muxikan, Gernikatik hurbil, **"Anaitasun** eguna"-ren karietarat, Itsasuko gau-eskola, trikitilari eta pilotariekin batera. Herria

Horien guzien berri jakitera joaitea gu ere, gure mundu espantutsuaren erdian, ez ote da guretzat **anaitasun** urrats bat arras beharrezkoa! Herria

Gure aldetik, aukera profitatuko dugu erakusteko ez garela beste edozein baino gutxiago ontasun, karitate eta **anaitasun** kontuetan, orain, almuedanoak galdetu duenean, Nork lagunduko dit eskailera jaisten. Jon Alonso

Moral gaietako gure hutsegite guztien iturria, kristauek bere zorigaitz eta larritasun mendean asmatu zuten **anaitasun**-lotura zentzugabe hura onartzea izan da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Komeni da agian idazle izan diren eta ez direnen artean maiz sortu izan den **anaitasun**-lokarri hori oroitaraztea, frankoren bihotza arinago mugi dadin. Iñaki Arranz

Zer bilaka litake Euskal Herria **anaitasun** lekurik gabe? Herria

Indar handiz nabaritzen da testuan Frantziskoren nortasuna eta ideala: bereziki, Kristoren pobretasuna eta apaltasuna bizitzeko asmoa, Ebanjelioko **anaitasun**-ideala, Elizarekiko elkartasuna, anaien askatasuna beren aukerak egiteko eta bokazio erlijiosoa bizitzeko eratzen duen modu zehatza. Askoren artean

Adiskidantza haundia baitzuten, ez da harritzeko **anaitasun** hitzarmen bat sinatua izan bazen handik laster Lizarra eta Donibane-Garaziren artean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Luzeegia litzateke frogatzea zein gorrotagarria den giza gogoaren gaineko indarraren nagusigoa, honen lorpen bakarra azpikeria eta, beraz, doilorkeria baita; eta zein muturtua dagoen arrazoiak eta aginteak gidatzen duen, eta guk ezinbestekoa ikusten eta izugarri estimatzen dugun apaltasun eta **anaitasun** espirituarekin. Juan Martin Elexpuru

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hori da jendailaren artean nagusi den iritzia, Giza **Anaitasunak** bere garapen logikoena eta defendatzailerik xaloenak aurkitzen dituen jendartean, alegia. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anaitasuna behar** (3); **anaitasuna edo** (3); **anaitasuna mendi** (3); **anaitasuna pabiloian** (3); **azkoitiko anaitasuna** (4); **berdintasuna eta anaitasuna** (3); **iruñeko anaitasuna kiroldegian** (9); **iruñeko anaitasuna pabilioian** (3); **taldeen arteko anaitasuna** (4)
> **anaitasunaren aldeko** (3); **berdintasunaren eta anaitasunaren** (4)

---

anaitasunezko *izlag* anaitasunari dagokiona.

Zehazki, Corsica Fraterna (**Anaitasunezko** Korsika) lelopean, mintzaldiak, eztabaidak, kontzertuak, film agerraldiak eta ahaidetasun otorduak tartekatu dira aste osoan. Berria - Mundua

Hala bada, haurtzaroa elkarrekin igaro zuten, **anaitasunezko** adiskidetasunean baturik. Patxi Zubizarreta

Otsaileko gertaeretan Paris odoldu zelarik, atsekabetu eta klubez klub ibili zen odol haren ordaina eskatuz eta "mundu osoko errepublikazaleen **anaitasunezko** musua" aldarrikatuz. Karlos Zabala

Segurki halere, deus ez direla 50 edo 90 urte, lehengo etsaigoetarik **anaitasunezkoa** gororat iragaiteko. Herria

---

anaitu, anai(tu), anaitzen da/du *ad* anaitasun loturaren batez elkartu.

Eta hemengo euskaldunak eta hangoak, denon etxearen defentsan **anaiturik**. Txillardegi

Kidetasun harrigarriak **anaiturik**, marrantatu arte kantatu dut berekin. Txillardegi

Azpimarratzekoa da pieza hori jadanik Azpeitian eman dutela ekainaren 18-an, Hazparne eta Azpeitia **anaituak** baitira. Herria

Anaituriko bi herriren arteko liskarraren biktima izan zen. Berria - Kultura

---

anaitzako *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* anaiordea.

Nadiaren aita biologikoaren **anaitzakoa** zen. ETC-literatura, saiakera

Eta, hara non, ehun negu geroago, beragana itzuli zen garta hura, bere lagun eta **anaitzakoaren** bilobaren eskutik. ETC-literatura, saiakera

Udaberrikoaren **anaitzakoa** den baba beltx txikia jateko aukerarik ia inon ez denez honen gurtzarako osatutako tripontzi kofradia ere ezagutzen dut. ETC-prentsa

Eleberria Yorkshiren girotuta dago, eta Catherineren eta bere **anaitzako** Heathcliffen arteko maitasun, obsesio eta menderatze istorioa du ardatz. ETC-prentsa

GASTON.- Nik nire **anaitzakoa** bisitatu nahi nuke. Jose Mari ezagutzeko irrikaz nago. ETC-telebista

Litekeena bezala pentsatu izan da Anaia Jazinto Sierra lantegiko bere laguntzaile, Frantzisko, Tomas, Jose eta Pedroren **anaitzakoa** zela eta dokumentuetan saiatu zirela Gaztelan eraikitako erretaula askotan bere esku hartzea -bakarka nahiz taldean- nolakoa izan zen bereizten. ETC-entziklopedia

Æthelstan erregea, **anaitzakoa** zuena, hil zenean, haren lekua hartu zuen tronuan, eta Kingston upon Thamesen koroatu zuten errege, 939ko azaroan. ETC-entziklopedia

anakardo *iz* tropikoetako zuhaitza, enbor lodia, adaburu sarria eta tapitua dituena*(Anacardun)*.

Katilutxo batera bota zuen aho-gozo beteko koktel bat: kakahuete txigortuak eta gazi-puntu fin bat emanak, almendrak, hurrak, eta **anakardoak** ! Jon Muñoz

Beraz, klima eta gainerako gorabeherak aldeko izanez gero, berton produzituko (produzitzen segituko) dira **anakardoa** , arabarba, babakoa, banbua[...]. Edorta Agirre

---

anakoluto *iz* esaldi bateko osagaien arteko sintaxi konkordantziarik eza.

Orokorretik partikularrera pasatzeak beti berekin dakar ezuste kitzikagarririk, noiz eta ere isla zehatzik gabeko arerio-kide beldar-irudi hori aurrean definituz baitoakizu, apurka-apurka zein bat-batean, eta Mitmensh delakoa bilakatzen baita, giza kidea, bere haragi-trinkotasun, tik, bitxikeria eta **anakoluto** guztiekin. Juan Garzia

---

anakonda 1 *iz* Hego Amerikako oihanetan bizi den boa mota ur-lehortarra, pozoitsua ez dena.

Hamalau metratarainoko boak ba omen daude oihan handi batzutan, **anakonda** famatuaren gisa. Herria

Horrela, apurka-apurka, boa edo **anakonda** baten moduan, Tau itzotzeko ahaleginean hasi zen Ulker, baita lortu ere. Berria - Kirola

Ibiliko ziren, ikusi ez banituen ere, ziklopeak, lamiak, basiliskoak, herensugeak, banpiroak, otso-gizonak, **anakondak** eta krokodiloak. Joxean Sagaztizabal

Beren festetan, edo ehiza on baten ondotik, dantza egiten zuten, eta haien dantzak izan zitezkeen beren bizigogoa agertzeko modu bat, edo izan zitezkeen, halaber, tigreen, kaimanen eta **anakonden** uxatzeko modu eta molde bat. Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

Eta nik, nire artean, zer duen hitz egiteko manera horrek horrela liluratzeko, zer jukutria darabilen, eta ondorioztatzen duzu, morfosintaxiarer **anakonda** bazter utzita, eta politikariez ari garelako, bakantasuna dela, gutxietsitako euskalkiaren erakustaldi bikaina, eta jakina, izan dituen karguei dagokien berbakera. Iñigo Aranbarri

3 ***anakonda arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Anakonda arrunta ("Eunectes murinus") "Anakonda Eunectes" generoko animalia da. Narrastien barruko Boidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

4 ***anakonda berde*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ezagunena **Anakonda berdea** dugu hau baita dudarik gabe suge munduan aurki dezakegun sugerik harrigarriena bere 10 metroak gainditzen dituen luzerarekin. ETC-entziklopedia

---

anakoreta *(orobat **anakoreto** g.er.) iz* eremutarra, leku bakartietan otoitzera eta penitentziara emanik bizi zen lekaidea.

Desertua leku berezia da, eta hara erretiratzen ziren antzinako denboretan munduaz aparte -gizarteaz, hiriaz aparte- bizi nahi zuten guztiak, hala **anakoretak** nola epaileareen beldur ziren gaizkileak edo maitasun dezepzio bat jasan eta bakardade gorrian murgiltzeko promesa egindako etsiak. Bernardo Atxaga

Zenobita komunitate erlijiosoetako komentukidea da; **anakoreta** , berriz, bakardadean bizi den erlijiosoa. Xabier Olarra

Desertua leku berezia da, eta hara erretiratzen ziren antzinako denboretan munduaz aparte -gizarteaz, hiriaz aparte- bizi nahi zuten guztiak, hala **anakoretak** nola epaileareen beldur ziren gaizkileak edo maitasun dezepzio bat jasan eta bakardade gorrian murgiltzeko promesa egindako etsiak. Bernardo Atxaga

Anakoretaren indibidualismoa eta independentziaren sen erabatekoa. Edorta Jimenez

Bere bizitza guztia Kristoren maitasunaz eta haren oroitzapenaz elikatzen igaro eta bat-batean bere Jainkoa agertu behar zaiola jakiten duen **anakoreta** santuak ez luke zirrara biziagorik izango Héraclius Gloss doktoreak egunen batean agian bere eskuizkribuaren egilea topatu ahal izango zuela ziur jakin zuenean izandakoa baino. Josu Zabaleta

Anakoreta siriarren artean, "neurritasunaren aurkako bekatutzat jotzen zen janari egosiak jatea", S. Askoren artean

Kristau-**anakoretak** , San Antonio basamortuan edo San Simeon zutarrian. Iñaki Mendiguren

Eta funtsean, **anakoretoak** basamortura zihoazen. Piarres Aintziart

---

anakoreto ik **anakoreta**.

---

anakroniko *izond* berez beste garai bati dagokiona.

Probintzietako ministerioetako igogailuetan lan egiten duten funtzionario **anakronikoek** (beren aulki eta guzti, hantxe, igogailu erdia baino gehiago hartzen dutenak). Iñaki Heras

Ez da garaiko iraultzaile edo ezkertiar idealista utopiko **anakroniko** baten aldarrikapena. Iñaki Heras

Anakronikoa denboraz kanpo bizi den bezala, anatopikoa lekuz kanpo bizi da. Joseba Sarrionandia

---

anakronikoki *adlag* era anakronikoan.

Ez gaude garai baten barruan bakarrik, adin asko ditugu eta **anakronikoki** bizi gaitezke. Berria - Kultura

Umorea ere ergeltasuna zorroztasunarekin gurutzatzen den lekuan sortzen da; solas horretako lehenengoak guztiz **anakronikoki** hitz egiten du, Jose Calvo Sotelo hil dutela urtebete berandu ohartu balitz bezala. Berria - Kultura

---

anakronismo *iz* anakronikoa denari dagokion akatsa edo hutsegitea.

Zakurra antigoaleko hondar bat da, **anakronismo** bat. Xabier Olarra

Gero, Espainian demokrazia ezarri zenean, ETAren jarraipena **anakronismo** eta hondamendi bihurtu zen. Joseba Zulaika

Dagoeneko hemeretzigarren mendeko Estatu weberiar bat exijitzea, armada nazionala zutabe duela, **anakronismoa** da. Joseba Zulaika

Errealitateak simetriak eta **anakronismo** arinak maite ditu. Juan Garzia

Kontuan hartu behar baita garaiak eta sentimenduak oso primitiboak zirela, **anakronismoan** erortzeko arriskua dago, burdinazko koroetan diamanteak jartzea, esaterako. Jon Alonso

Nire ustez, nahitaezkoa zaigu eredu erromantikoari uko egitea **anakronismoan** edo bazterketan ez erortzearren, hots, lehen mailako balio kulturalak geureganatzeko, eta helburu horrek, praktikan, euskal gizartearentzat -sektore, talde, pertsona desberdinez osatutako gizartearentzat, alegia- leku berri bat eskatzen du. Bernardo Atxaga

Aitona-amonez jarduteak baditu bere alde on eta txarrak: txarra, aita-amez baino gutxiago dakigula, garaia askoz urrunagoa zaigula, eta, hortaz, ezin konta ahala izango direla historiako zuloak, etengabea **anakronismoaren** arriskua. Xabier Mendiguren Elizegi

Anakronismo larria izango litzatekeela liburu horiek beste aurrekoen eskrezentzia huts eta apenas justifikatu bezala hartzea. Santiago Iruretagoiena

Ni bere bizitzan agertu berri nintzen **anakronismo** espainiarra nintzen. Jon Muñoz

Anakronismo -delitu batean erortzeko arrisku eta guzti (kode penalean ez dator halako deliturik, baina gertagarritasun-kalkuluak eta usadioak kondenatzen dute noski), hona Santiago de Chilen 2074. urtean argitaratuko den *Enciclopedia Sudamericana* delakotik harturiko ohar bat. Juan Garzia

anakronismozale *izond* anakronismoen zale dena.

Anakronismo garbia **anakronismozaleentzat**. Patxi Iturritegi

anakrusa *iz* melodia baten denbora indartsu baten aurreko nota ahulen multzoa.

Kontzertu guztian ikusi zenez, Wolff zuzendariak ez zituen tema ezberdinak behar den argitasunez aurkeztu eta bere keinu perkutiboarekin begi-bistako gauza gehiegi markatu zituen (ajuste arazoren bat ere sumatu genuen lan honen hasieran gehienbat), nire ustez horrelako orkestra bateko musikariek behar ez dituzten indikazioak (subdibisio ugari, **anakrusak** ...). Berria - Kultura

anal[1] *iz pl* urtez urte gertaera garrantzizkoenak jasotzen dituen liburua.

Fedegabeei, Jauna, fedegabeei eta ez niri, nik sinesten baitut ahalguztidun zarela, baina Kristok ez zuen mairuen aurrean agertu nahi izan, ordu txarrean, bestela, gaur, **anal** hauetan, borroka ezin ankerrago beharrean, azkenik han bizia galdu zuten ehun eta berrogeita hamar mila fedegabe horien konbertsio zoragarria egiaztatu ahalko genuke. Jon Alonso

Halaxe zegoen zuzentzailea, irribarre sarkastikoa ezpainetan zuela, eta halako batean bere bihotzak jauzi egin zuen, zeren, Egas Moniz **analek** esaten duten bezain haurtzain ona izan bazen, ez bazen jaio infante elbarria Carquerera eramateko bakarrik.Txinako astronomoak fenomenoaz ohartu eta **analetan** jasoa utzi zuten, eta beste horrenbeste egin zuten, historialariek frogatu ahal izan dutenez, astronomo pertsiarrek eta aztekek. Jon Alonso

Kasua famatua da Europako Kronopoliziaren **analetan**, gainera, aspaldiko hipotesia konfirmatu zuen aurrenekoa izan zelako: denbora-zuloak eratzeko makineria asmatu aurretik gizaki batzuek denbora-jauziak egiteko ahalmen ezkutua garatu zutela. Iban Zaldua

Gauzatu gabeko krimen handien aipuak egitea gustatzen zitzaion, zeren literaturaren historian libururik gabeko idazleak dauden bezalaxe (Sokrates esate baterako), krimenaren **analetan** ere ba omen daude, zioenez, odol tantarik isuri gabe (tinta tantaren eta odol tantaren arteko simetria topikoa guztiz atsegin zuen) sekulako hiltzaile gradua lortu dutenak. Joxean Agirre

Gertakizun hura lotsa-aldi txikiaren kategoriatik klasikoen mailara -ahalkearen eta umiliazioaren **analetan** maisulan iraunkorra bihurrarazteraino- igoarazi zuena izan zen Dudley gizajoa barka eskatzeko bezain xaloa izan zela -ezin baldreskeria zorigaiztokoagorik-. Oskar Arana

anal[2] 1 *izond* uzkikoa, uzkiari dagokiona.

Fase faliko edo izorratzailea baino lehenago, harreman **anal** garbi-garbia izana da gurea. Iñaki Segurola

2 *sexu anal* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ez du **sexu analik** praktikatu. ETC-prentsa

Sexu anal heterosexualak gorantz egin du azken urteotan heterosexualen artean. ETC-literatura, saiakera

Uzki-sexu edo **sexu anala** zakila edota jostailu sexualak uzkian sartzearen praktika sexuala da. Beste termino sinonimo batzuk "sodomia", "uzki-koito" eta "pedikazio" dira. ETC-entziklopedia

analema *(corpusean analemma soilik)* *iz* eguzkiak zeruaren esferan duen batez besteko posiziotik aldentzen denean osatzen duen kurba.

Egiten dira beste era bateko neguko erlojuak ere, anaforikoak esaten direnak, eta metodo honekin egiten dira: **analemmaren** trazatuaz baliatuz orduak jartzen dira brontzezko hagatxoak erabiliz zentrotik hasi eta erlojuaren aurreko aldean. Santiago Iruretagoiena

analfabetismo *iz* analfabetoa denaren egoera; analfabetoak dauden egoera.

Era berean, **analfabetismoa** gutxitzeko Nazio Batuen Erakundeak jarritako helburuak betetzeko, munduko haur guztiak "maila berean" kontuan hartzea "nahitaezkoa" dela gogorarazi zuen Bellamyk. Berria - Gaiak

Frantziatik behin betiko desagerrarazi behar ditiagu eskualde hizkuntzak, barbarismoak, **analfabetismoa**. Elena Touyarou

Orotara 2,5 milioi biztanle daude eta **analfabetismoa** %59koa da. Berria - Harian

Analfabetismoaren beherakadarekin eta ikasketen gorantzarekin batera indioen bizimodua hobetuz doa. Gotzon Garate

Kultura txirotze hari bai iritzi zion benetan tristea eta penagarria, eta **analfabetismoaren** atarian sentitzeak seko hondoratu zituen haren animo lehen ere ajetuak. Karlos Linazasoro

Izan ere, **analfabetismoak** indarkeria dakar. Berria - Gaiak

Analfabetismoari dagokionez, berriz, Tibeteko gizonen %5ek ez dakite irakurtzen. Berria - Gaiak

Batetik, epaile espainiar baten ezjakintasuna dago, **analfabetismo** kulturala: herritarren artean bildutako diruarekin euskarazko argitarapen bat ateratzea ez ulertzeak, guztia esaten du. Berria - Euskal Herria

Garai haietako atzerapen intelektuala eta **analfabetismo** orokorra. Jon Alonso

Analfabetismo maila murriztea da egitasmoaren helburua. Berria - Gaiak

Oraindik ere arazo larriak ditu herrialdeak: azpiegitura asko suntsituta daude, argindarra eta ura falta dira, **analfabetismo** eta langabezia tasak oso altuak dira eta baita ustelkeria maila ere. Berria - Mundua

analfabeto 1 *izond/iz* irakurtzen eta idazten ez dakiena; irakurtzen eta idazten ez dakien pertsona.

Zer egingo, ordea, inguratzen ninduten baserritar **analfabeto** haiek? Txillardegi

Ahaltsuenak, indartsuenak zarete eta, hala ere, ezin laborari **analfabeto** batzuk menperatu. Xabier Montoia

Amona nekazari **analfabetoa** zen, baina sekulako emakumea, oso gogorra. Berria - Kultura

Guri tokatzen zaiguk (eta hiri ere tokatuko zaik, beraz!) izkribu horiek guztiak bolondres **analfabetoei** irakurtzea eta azaltzea. Txillardegi

Ezjakina edo **analfabetoa** izan liteke, baina badu berezko jakinduria sakon bat. Pako Aristi

Gizarteak orokorrean ziztu bizian egin du aurrera eta gutako askok **analfabeto** izaten jarraitzen dugu. Berria - Euskal Herria

Analfabeto izateak, diruezak, tradizioak eta senarren mende egoteak kate itogarria leporatzen diete emakumeei ezkontzan. Gotzon Garate

Lehen ere esan dugu Keralan ia ez dela **analfabetorik**. Gotzon Garate

Familia bakoitxari "carte citoyenne" eskaintzean (hilabetero Banku Federaletik dirua altxatzeko) galdatzen dugu **analfabetorik** badenez familia hortako Herria

Munduko herri pobreenetarik bat: herritarren %74 **analfabetoa**, %71 pobrezia hutsean bizi, %50 langabezian. Herria

Emakumeetan %60 **analfabetoak** dira. Gotzon Garate

Gehientsuenak barneko herrixketakoak dira, denak ezkonduak, **analfabetoak**, eta gizarteko mailarik behereenetakoak. Gotzon Garate

Horregatik dira sinonimoak, gaztelaniaz behintzat, kulturagabea eta aldeanoa, **analfabetoa** eta rurala, nekazaria eta kaikua, palurdoa. Bernardo Atxaga

Haiek irakurtzen genizkien **analfabetoei**, huraxe genuen katixima. Koldo Izagirre

1964rako, emakume, **analfabeto** eta jabetzarik ez zuten herritarrei onartu zieten bozkatzeko eskubidea. Berria - Mundua

Errepidean aurki genitzakeen kontroletan **analfabeto** asko egongo zen seguruena, baina zigilua ondo jarrita bazegoen, aise pasatuko ginen, gurasoen ezkontzarako gonbit idatzia bagenu ere igaro-baimentzat. Inazio Mujika Iraola

Gaur egun, herri txiroenetan bizi diren milioi bat haurrek jasotzen dute hezkuntza; milioi eta erdi **analfabeto** irakurtzen eta idazten ikasten ari dira. Berria - Mundua

Munduan mila milioi bat **analfabeto** omen dago. Gotzon Garate

Frantxis, berez, euskaraz **analfabetoa**, ahoa bete hortz geratzen zen Txoko hitz egiten behatzean. Denok egiten diogu zuka Manterolari, kapitain merkantea da eta gu **analfabeto** hutsak. Itxaro Borda

Orain bezain **analfabeto** elebakar iraungo dutelako geroaldian ere. Edorta Agirre

Berria da, baita ere, beren espezializaziotik kanpo **analfabeto** kultural erabatekoak diren profesionalen kasua. Anjel Lertxundi

Datu bat baino ez: gaur egun, lehen munduko herritar asko **analfabeto** funtzionalak dira; hau da, irakurtzen eta idazten badakite, baina praktikan fakultate horiek galdu egin dituzte, ez dituztelako erabiltzen. Txema Ramirez de la Piscina

Neu ere banaiz, ordea, **analfabeto** erabatekoa jakituriaren hainbat alorretan, ez baitakit hutsaren hurrengoa baino gehiago aurrerapen zientifikoak eta teknologikoak adierazten dutenaz. Anjel Lertxundi

Azken urteotan **analfabeto** kopuruak "nabarmen" behera egin duen arren, 3,5 milioi haur eskolagabeak dira. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Teknologia berriekin, gaur ez dena bihar **analfabeto** izan daiteke eta urkoa baino gehiago garela erakutsi behar dugu, uneoro. Berria - Gaiak

Gaurko zinemagileak askotan **analfabeto** bisualak dira eta. Berria - Kultura

3 ***analfabeto funtzional***

Gaur egun, lehen munduko herritar asko analfabeto **funtzionalak** dira; hau da, irakurtzen eta idazten badakite, baina praktikan fakultate horiek galdu egin dituzte, ez dituztelako erabiltzen. Txema Ramirez de la Piscina

Haietako askok ez zekitela irakurtzen, edo zehatzago adieraziz, analfabeto **funtzionalak** zirela. Bernardo Atxaga

4 ***euskaldun analfabeto***

Anartean Urantzia herrian sartzekotan naiz: Hostal Ezequiel zortzi hizkuntzetan eskainia zaio erromesari, eta "Ongi Etorri" xuxen idatzia, Nafarroa osoan ohi den bezala, guk Iparraldeko **euskaldun analfabetoek** ez badugu ere beti gure mintzaira errespetatzen. Piarres Aintziart

Nik badut lagun franko, urrutira gabe, Leitzan eta Goizuetan, **euskaldun analfabeto** hutsa dena, baina, euskaldun jatorrago izateko, eta are egi (n) bakardun heroe sentitzeko, egunero egia erdaraz erosi eta euskaraz leitzen saiatzen dena. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **analfabetoak dira** (5)

---

analgesia *(corpusean ez dago; ETCn **136** agerraldi)* *iz* oinazearen gutxitzea edo haren gabezia.

Analgesia samur baten pean nago, Claudiu, orain ausartuko naiz esaten. ETC-literatura, saiakera

- **Analgesia** garrantzitsua da, minak garezur barneko presioa altxarazi baitezake. ETC-zientzia, zuzenbidea

Heroina ere talde honetan kokatzen da, baina **analgesia** baino, ongitasuna edo euforia eragiten ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

BPO-etan ezagutzen den efektu fisiologiko nagusiena **analgesia** edo minaren murriztapena da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurrenak izan ginen erditu behar zutenei inhalatzeko **analgesia** eskaintzen: horrez gain, dilataziorako bainuontziak ere jarri genituen gure instalazioetan. ETC-prentsa

Saguetan egindako azterketek erakutsi dute minaren **analgesian** morfina baino indartsuagoa dela, eta, gainera, nahiz eta dosiak errepikatu, ez da tolerantzia arazorik izaten; beraz, ez da dosia gehitu behar tratamendua aurrera joan ahala. ETC-prentsa

Egileak azaldu duenez, manba beltzaren pozoietik erauzitako peptido batzuk txertatu zizkieten saguei, eta morfinak adinako **analgesia** eragin zien horrek. ETC-prentsa

Izan ere, badugu **analgesia** hoberena: anestesia. ETC-prentsa

Kanabinoideoek **analgesia** eragiten dute eta hori terapeutikan erabilgarria izan daiteke. ETC-prentsa

Parazetamola eta AIEEak konbinatuz **analgesia** hobeagoa lor daiteke farmako bakoitzak bere aldetik erabilita baino. ETC-entziklopedia

Tratamendu farmakologikoa **analgesiarako** eta inflamazioa gutxitzeko erabil daiteke, ahoz edo infiltrazioz hartuta. ETC-entziklopedia

---

analgesiko *izond/iz* oinazea arintzen edo ezabatzen duena; oinazea arintzen edo ezabatzen duen gaia.

Ozonoa aplikatu diogu, eta, partida aurretik, ukendu **analgesikoa** jarri genion. Berria - Kirola

Analgesikoa: Kalamuak oinazea arintzen du. Berria - Harian

Behin eta berriro galdetzen dut **analgesikoak** eman behar dizkidaten. Agurtzane Juanena

Analgesikoak, adiktiboak direnez gero, debekatu egin zituzten gobernuek. Joseba Sarrionandia

Ansiolitikoak, antidepresiboak, lasaigarriak, pizgarriak, **analgesikoak**. Sonia Gonzalez

Gizon txikia esaten jarraituko dugu, hitzen botere baltsamikoa baliatze aldera, hitzak penizilina balira bezala, hitzak **analgesiko** moduan, hitzak banatu ditzagun kanpamenduetan morfina banatzen duenak bezala, eskuzabal. Harkaitz Cano

---

analisa ik **analisi**.

---

analisatu ik **analizatu**.

---

analisi *(ETCn **25.973** agerraldi)* **1** *iz* osotasun baten zatien azterketa; gertaera, idazlan, teoria eta kidekoen azterketa zehatza; gai elkartu edo nahastura bat bere osagaietan banatzea.

Ondo, beti bezala; eta guztiz bat nator **analisiarekin**. Jon Alonso

Xehetasun bakoitzari hain arreta gogotsu eta zorrotza jartzea, ezkutukoa etengabe miratzea, halako azterketa eta **analisia**, bere-berezkoak ditu Touretteren sindromedunaren gogamen urduri eta zorrotzak. Xabier Olarra

Zaragozako laborategiaren **analisia** baino ez zaigu falta. Patxi Iturritegi

Lehen urrats gisa, berak egiten ez zekiena egin behar nuen: garai hartan ez zen erraza **analisirako** produktu pururik aurkitzea, eta zenbait aste eman beharko nituen bentzeno, klorobentzeno, klorofenol, toluidina eta beste arazten. Juan Garzia

Agian gutxiago iseka eta zapalketa artean supizturiko matxinada baten **analisian**. Joxe Azurmendi

Bidearen aldapak eta egunaren akidurak ez zizkigun **analisia** sakonak errexten! Zeraman biziaren pusketa zenbait agertu dizkit, gure urrats irregularren araberakoak. Piarres Aintziart

Analisiaren azken buruan, normalean, trebetasuna maila handi batean punpezia nabarmena dela aurkitzen da. Xabier Olarra

Odolaren azukrea, pixaren **analisia**, tentsioa, pultsua, pisua... Jokin Urain

Hiru hedabide mota horien artean prentsa jo izan da beti eraginkorrentzat, besteak beste, **analisirako** eskaintzen duen bidea handiagoa delako. Txema Ramirez de la Piscina

- Rochefort jaunak ez du nire **analisia** onartzen, baina bera frantsesa da. Koldo Izagirre

Gu, saioa amaitu osteko tragoxkadarekin, saioaren **analisia** egiten eta geure buruaren lana ebaluatzen hasi ginen. Andoni Egaña

Ramon Saizarbitoriaren Ehun metro lanari buruzko azterketarekin eta garai hartan egin nituen hainbat erreseinekin eta abar, **analisiaren** bidean zerbait hausten ari nintzela konturatu nintzen. Ana Urkiza

Errazenetik hasiko naiz, esanez ezen, egin dudan **analisiaren** arabera, nere biziak ez duela semantikarik (biziaz ari naiz, ez biografiaz). Iñaki Segurola

Vilak itxi du **analisia**: "Noe aurrean ibiltzen da beti, Cunego ere ikusgarri ari da...". Berria - Kirola

Jendeak nazioarteko **analisiak** gustura irakurtzea da nire xedea. Berria - Euskal Herria

Baina, menturaz, Sokratesen ikaslea izan zen Kalliklesen kasua da sofistikaren **analisiak** izan zuen gauzatzearen lekukotasunik beteena. Askoren artean

Bere salako sendagileari haren **analisia** egin zezaten gomendatzeko eskatu zion. Josu Zabaleta

Azken urteotako euskal kulturaren **analisia** nahi den esparrutik eginda ere ateratzen zaidan ondorioa da hau. Iñigo Aranbarri

Analisiek ez zuten zalantzarako tarterik uzten: hatz-markak ez ziren gizakiarenak. Harkaitz Cano

Analisiak jakinda gero, Sararekin egon beharra nuen. Joan Mari Irigoien

- Zer, atera dira **analisiaren** emaitzak, doktore? Lopez de Arana

Bere ohean botata, guztiaren **analisia** egin nahian ari zen Joseba. Fernando Morillo

Xabi nik idatzitako kapituluaren **analisia** egiten ari zaidan bitartean, liburuko beste orri batzuk begiratzeari eman diot, jakin-minez. Xabier Etxabe

Sendagaiek eragindako alergia, idatziko du alergologoak, **analisien** emaitzak ikusi ondoren. Imanol Zurutuza

Halaz, aztarna ekologikoaren adierazleak emandako **analisiaren** bidez, badakigu Lurrean biologikoki produktiboak diren bi hektarea besterik ez dela pertsonako. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Halakotzat harturik, bertsolaritzaren formula-izaerak inolaz ere ez du **analisirako** gaitasuna oztopatzen, baizik eta haren bitarteko bilakatzen da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Analisiaren urrezko aroa. Jon Muñoz

2 (izenondoekin)

Gorraizek berak jakinarazi zuenez, Koordinakundeak, nolanahi ere, **analisi** sakonagoa egingo du datozen egunetan, prentsa oharraren edo prentsaurreko baten bidez. Berria - Euskal Herria

Azterketan era guztietako analisiak egingo dira: **analisi** urbanistikoak, sanitarioak, ingurumen azterketak. Berria - Euskal Herria

Odolaren **analisi** zehatza egingo da txirrindulari batzuekin, eta azpijokoa egin dutela sumatzen badugu, lizentzia kentzeko eskumena izango dugu. Berria - Kirola

Horrela erakutsi dute orain egun batzuk egin zituen **analisi** zorrotzek. Berria - Kirola

Besteak beste, hilobietako gorpuen **analisi** forentse zorrotzak egingo zirela baieztatu zuten, baina oraindik inolako azalpenik eman gabe jarraitzen dute. Berria - Kultura

Esan bezala Gidariaren azpitestuan dagoen **analisi** psikologikoaren azterketak nortasunaren freudiar ikuskerarekin harreman puntu batzuk dituen teoria bat aurkezten digu. Xabier Kintana

Baina era berean, halako sen berezia zuen, garaiko munduarekin sintonizatzeko (ez noski **analisi** teorikoen bidez, berezko senez eta intuizioz baizik). Askoren artean

Labur ditzagun orain gure **analisi** luzearen fruitu eskas baina argiak. Koro Navarro

Horiek horrela, harritzekoa da bai ikustea nolako hutsaltasunez defendatzen diren horrelako eragina izango luketen ekimenak, inolako ñabardurarik gabe, haien sendotasunen eta ahultasunen **analisi** global eta estrategikoetan sakonean murgildu gabe. Iñaki Heras

Egin dezagun **analisi** kasuistiko bat. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta, azkenik, zelula "iragankorrek" inhibi ditzakete zelula "iraunkorrak": zelula "iragankorrak" alarma-sistema moduko bat-edo balira bezala har daitezke, bada, eta zelula "iraunkorrak" **analisi**-tresna bat balira bezala. Josu Zabaleta

Batzuetan, batez ere prozesu industrialen kontrolean, garrantzitsua izaten da **analisi**-lana ia une berean egitea, egin beharreko zuzenketak ekoizpen-katean aplikatu ahal izateko. Irene Aldasoro

Ekonomia konbentzionalaren kontzeptuak eta **analisi** tresnak aplikatzen dizkiete natur baliabideei, eta jarduera ekonomikoaren ingurumen inpaktu edo eraginak kanpoko elementutzat hartzen dituzte. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Aramendik beti dauka **analisi** materialista egoki bat edozein abeleratarako. Xabier Mendiguren Elizegi

Bitzitzari buruzko ideiak eta **analisi** ahalmena: sanoak, zuhurrak. Alberto Ladron Arana

Gure lehen **analisi** esparrua hiztegietako orriek mugatuko dute. Iñaki Arranz

Horrez guztiaz gainera, kontuan hartu behar da nazioarteko trukeen analisiak, definizioz, nazioa hartzen duela **analisi**-unitatetzat; baina konkurrentzia, aurrenik, enpresei dagokie. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Askorentzat, ekonomia **analisia** lanbide dutenak aurreikuspenak egiten baino aurreikusitakoa zergatik betetzen ez den azaltzen dira adituak. Iñaki Heras

Lastertasuna eta fabrikako lan-aretoan bertan funtzionatzeko gaitasuna sentikortasun handia baino garrantzitsuagoak direnean erabiltzen da on-line **analisia** (hala deritzo une bereko lan-metodo horri). Irene Aldasoro

Nazioarteko Olinpiar Batzordeko ordezkariek, halaber, gernu **analisiak** egin zizkioten Austriako biatloi eta iraupen eskiko selekzioko hamar eskiatzaileri. Berria - Kirola

Tourraren atarian, goizean eta arratsaldean odol eta pixa **analisiak** egin zizkiguten, atseden egunean dopin kontrola, inoiz egiten ez denean. Berria - Kirola

Hizkuntzalaritzan formulatze zehatzak bilatzea ez du bakarrik logikaren edertasunarekiko zaletasunak edo hizkuntz **analisiko** metodo ezagunak garbitzeko nahiak eragiten. Itziar Laka

5 ***ABC analisi*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

ABC analisia izakinen kudeaketarako tresna bat da, izakinak osatzen dituzten "item" edo artikulu mota ezberdinetarako kontrolerako lehentasunak ezartzen dituena. ETC-entziklopedia

6 ***aldagai anitzeko analisi*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Datu hori bestelako aldagaiekin nola lotzen den zehaztea "oso zaila" dela uste du Etxeberriak: "**Aldagai anitzeko analisi** bat egin beharko litzateke horretarako". ETC-prentsa

Horretarako, analisi deskriptiboa, diferentziala eta **aldagai anitzeko analisia** erabili dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Guk, paleontologoen belaunaldi erradikalak, estatistika eta ordenagailuak lotu genituen **aldagai anitzeko analisiaren** teknika ikasi genuenean. ETC-literatura, saiakera

Prozesua honako hau izan da: EGINSOFT enpresak egindako grabaketa-prozesua, datu-base etiketatu bat sortzea eta estatistikako Barwin softwarearekin lantzeko prestatzea, kalkulu-orriaren bidez, eta R estatistika-programarekin gerorako **aldagai anitzeko analisi** estatistikorako datu-base bat sortzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hainbat aldagai batera aztertzen duen **aldagai anitzeko analisiko** teknikak ere garatzen dira. ETC-entziklopedia

Estatistikan, korrespondentzia-analisia, **aldagai anitzeko analisiko** teknika bat. ETC-entziklopedia

7 ***AMIA analisi***

AMIA analisi sistemaren aplikazioaz ateratako ondorioek ez zuten ez koherentziarik, ez diskurtsorik. Berria - Kultura

8 ***analisi erreal*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Unibertsitatean matematikako lizentziarako ikasketak egiten dituzten ikasleek ekuazio diferentzialak, kalkulu aurreratua, aljebra abstraktua, aljebra lineala, **analisi erreala** eta

konplexua, eta abar, ikasten dute, eta aukera asko dituzte, matematikan eta informatikan ez ezik, baita matematika erabiltzen duten beste alor askotan ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hemen adibide gisa jar daitezke aritmetika, Euklideren geometria eta **analisi erreala**. ETC-entziklopedia

Bere lanak Jean Gaston Darbouxen eragin handia izan zuen geometria eta analisi matematiko diferentzialean. Jegoroven teorema, **analisi errealeko** eta integrazio teoriako teorema bat, bere ondoren izendatu zuten. ETC-entziklopedia

Zenbaki errealen kasuan, Cauchyren segida orok limite baterantz konbergitzen du. Propietate horrek **analisi errealaren** emaitza garrantzitsu bat dakar: segiden konbergentziarako Cauchyren karakterizazioa. ETC-entziklopedia

9 *analisi faktorial* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Erregresioa (sinplea, anizkoitza, logistikoa), korrelazioa, **analisi faktorial** miatzailea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Estatuaren eta herrialdearen autokategorizazioaren eta identitateei buruzko uste partekatuen antolakuntza komuna ikusteko, lehenengoz, Korrespondentzia **Analisi Faktorial** Anizkoitza (CFA, SPADN) burutu genuen. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *analisi funtzional*

Eusebio Melero Bizkaiko Garraio eta Herri Lanen diputatuak dioenez, alegazioak jartzeko arrazoi nagusiak bidearen trazatua, **analisi funtzionala** eta partikularren interesak dira. Berria - Euskal Herria

11 *analisi grabimetriko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Nahaste baten osagaien masa-frakzioen zerrendari, batzuetan, **analisi grabimetriko** deritzogu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehenik eta behin, medikuntzan eta industrian egondako aurrepenen eskutik metodo eta **analisi grabimetriko** berriak sortu ziren. ETC-entziklopedia

12 *analisi gramatikal* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Perpausen **analisi gramatikala** egiteko metodo bat zen eta horren azken helburua zen perpausen atzetik dauden gogo-egoerak nola dauden antolatuta azaltzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Analisi gramatikala: inputeko hizkuntzan agertzen den sinbolo-sekuentziaren egitura-analisia automatikoki egitea, oro har hizkuntza horren gramatikan oinarrituta. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 *analisi harmoniko* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Intentsitate-iturri bidezko ereduak ez dira hain ohikoak karga agregatuak aztertzeko, eta sare elektrikoen **analisi harmonikoa** egiteko erabiltzen da batez ere, kalkulu-prozesu iteratibo bat egiteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Maiatzaren 18a - James Arthur, kanadar matematikaria, **analisi harmonikoan** aditua. ETC-entziklopedia

Funtzio orokortuen teoria, ekuazio diferentzialak, **analisi harmonikoa**, Dirichleten serieak eta teoria potentziala landu zituen Beurlingek bereziki. ETC-entziklopedia

14 *analisi kliniko*

Hainbat **analisi kliniko** egin dizkiogu, ehun lagin ditugu, odol azterketaren emaitzak.. Berria - Mundua

15 *analisi konbinatorio* ik **konbinatoria 3**.

Trigonometria eta analisi **konbinatorioa** (multzo baten elementuak konbinatzeko era guztiak aztertzea). Jon Muñoz

Analisi **konbinatoriozko** adigaiak, eta haien lagungarri, mugarik gabeko errepikapenezko aldakiak adibide. Juan Garzia

16 *analisi konplexu* *(corpusean ez dago; ETCn **50** agerraldi)*

Analisi konplexuak, geometria proiektiboak eta tentsore-kalkuluak ezin izan zuten urrundu zenbakiekiko hasierako grinatik. ETC-literatura, saiakera

Han, **analisi konplexuak** egiten nituen, eta makina industriala garatzen hasi nintzen. ETC-prentsa

Aritmetika dator lehenik; gero, aljebra; gero, kalkulua; gero, ekuazio diferentzialak, aljebra abstraktua, **analisi konplexua**, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Prozedura horrek ordenagailu bidezko **analisi konplexuagoa** eskatzen du; Fourier Transformazio (FT) deritzo, Joseph Fourier (1768-1830) matematikari frantziarraren omenez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bigarrenean, **analisi konplexua**; problemaren alde guztiak errazten dituen tresna oso indartsua da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Analisi konplexuagoak gauzatzeko luzapenak ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Froga labur honetan, **analisi konplexuko** tresnak erabiltzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

1949an Selberg eta Erdösek **analisi konplexua** erabiltzen ez duen frogabide bat aurkitu zuten, Matematikaren Analetan argitaratu zena. ETC-entziklopedia

Feffermanek ekarpen ugari egin ditu dimentsio askoko **analisi konplexuan**. ETC-entziklopedia

17 *analisi kualitatibo*

Arratsaldeko ordu bietan, D. irakasle jaunak, halako itxura aszetiko eta arretagaldukoa bera, hauts mirrin jakin batetik gramo doi bat eskuratzen zigun: hurrengo egunerako **analisi kualitatiboa** burutu behar zen, hots, zein metal eta ez-metalez osatua zen adierazi. Juan Garzia

18 *analisi kuantitatibo*

Analisi kuantitatiboa, emozioz hain zekena bera, granitoa bezain astuna, horra bizi, benetako, baliodun bilakatu, obra serio eta konkretu baten ikuspegian kokaturik. Juan Garzia

Lehenbizi, **analisi kuantitatiboa** egin genuen, ondoren kualitatiboa, eta, azkenik, genero indarkeriaren gaian sakondu genuen. Berria - Euskal Herria

19 *analisi matematiko*

Osagai Independenteen Analisia izeneko **analisi matematikoak** epilepsiaren berezko aktibitateak eta neuronen aktibitate elektrikoak bereizteko balio duela frogatu du Urrestarazuk. Berria - Gaiak

20 *analisi numeriko* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Matematika ekonomian, uhinak eta **analisi numerikoa** eta Wavelet izeneko uhinak aztertuko dituzte gaur. ETC-prentsa

-Dena Matematika da -esaten nion amamari, Usabiaga, **Analisi Numerikoko** irakaslea, parafraseatuz-, gauza guztien neurria, egia bakarra... ETC-literatura, saiakera

Analisi numerikoan eta frogak egiteko, askotan beharrezkoa da jakitea zein azkarrak diren limiteen konbergentziak, hau da; ondarraren kontrola. Hori formalizatu daiteke jarraitutasunaren definizio bat sortzeko. ETC-entziklopedia

Horrez gain, zenbaki teoriak aplikazio ugari ditu **analisi numerikoan**, bai eta aski ezaguna den kriptografian ere. ETC-entziklopedia

21 *analisi organiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Askotan, aurretratamenduak analitoen araberakoak badira ere, maiz gerora erabiliko diren analisi ez-organikoetan edota **analisi organikoetan** erabilitako metodoen arabera aurki daitezke bereizita, ETC-zientzia, zuzenbidea

Liebigek **analisi organikoa** hobetu zuen, eta konturatu zen landareak elikatzen direla nitrogenoari eta karbono dioxidoari esker mikrobio batzuen laguntzarekin. ETC-entziklopedia

22 *analisi sintaktiko*

Eta gero, garai batean bezala, normaltasunean jada, Arzalluzek esandako azken memelokeriaren **analisi sintaktiko** eta morfologikoa egin ondoren, ea euskaldunoi zer gertatzen zitzaigun galdetu zidan -galdetu gabe, egiaz; esan nahi dut, erantzuteko betarik eman gabe-, eta zoratzen ari ginela zirudiela eta betikoa. Ramon Saizarbitoria

23 *analisi tekniko* *(corpusean ez dago; ETCn **41** agerraldi)*

Burtsan, **analisi teknikoa** iraganeko kotizazio eta prezioen bilakaeran oinarriturik etorkizuneko joerari buruzko aurresanak egiteko metodo grafiko eta kuantitatiboen multzoa da, maiz estrapolazioak eginez. ETC-entziklopedia

Bruselako iturriek atzo jakinarazi zuten Europako Batzordeak "**analisi tekniko**" bat egingo duela, AEBetako CIA zerbitzu sekretuek Europako ekialdeko zenbait estatutan kartzela sekretuak dituela dioen informazioa aztertzeko. ETC-prentsa

Analisi teknikoa egiten saiatzen da Aldalur, eta horretarako aldez aurreko lana egin behar omen da: "Jokalariak aztertu, emaitzak, nola jokatzen duten... ezin da **analisi teknikorik** egin aldez aurreko azterketa bat egin gabe". ETC-prentsa

Cintraren (-%8,9) danbatekoaren harira, bada **analisi teknikoa** erabiltzen duenik. ETC-prentsa

Eta burtsaren jardunak, bat-batekoa izanik ere, **analisi teknikoak** ditu sarri atzean. ETC-prentsa

Izan ere, arriskua formula matematikoa baino zerbait gehiago da, ez da **analisi teknikoak** esan dezakeen horretara murrizten. ETC-prentsa

Hala ere, **analisi teknikoek** gehiagorako ematen zutela esan zuen, eta 33.000 tonatara iristea ere espero zutela adierazi zuen. ETC-prentsa

Horren ondorioz, ZTG Zientzia, Teknika eta Gizartea bezala ezaguna den ikerketa esparruan egin diren zenbait azterketak salatu duen moduan, arriskuaren auzia ezin daiteke **analisi tekniko** huts batera mugatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arriskua, **analisi teknikoaren** baitan, kontzeptu probabilista bat da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Analisi tekniko batzuen emaitzen zain zeuden, eta autoa aurki zezaten espero zuen. ETC-literatura, saiakera

Analisi tekniko baten ikuspegitik, komeniko litzateke laguntza-ekipo osagarriak instalatzea babes-ekipo nagusiak izan dezaketen hutsegiteetatik babesteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala, Diagnostikoa idatzi zenean, **analisi teknikoa** herritarren parte hartzeko prozesu sakon batetik ateratako ekarpenekin osatu zen. ETC-literatura, saiakera

24 *balioaren analisi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Balioaren analisiak beste onura batzuk ekar diezazkioke enpresari. ETC-zientzia, zuzenbidea

25 *bariantza analisi* *(corpusean ez dago; ETCn 196 agerraldi)*

Bariantza-analisia, labur eta nazioartean ANOVA (ingelesez, ANalysis Of VAriance) izenez ere ezaguna, fenomeno edo saiakuntza bateko aldakortasuna, bariantzaren bitartez zenbait zatitan bereizteko prozedura bat da, aldakortasuna kausa edo faktore jakinei egoztearren. ETC-entziklopedia

Diseinu esperimental klasikoaren barrutian maizenik erabiltzen den datuen analisirako teknika den **bariantza-analisia**, nola ikuspuntu unibariatuan hala multibariatuan, agertzera eskainita dago 5. atala osorik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Galdesortaren barneko trinkotasuna neurtzeko Cronbach-en alpha kalkulatu zen eta generoaren eta kirolpraktikaren araberako desberdintasunak aztertzeko **bariantza-analisiak** egin ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aktorearen generoa eta ezaugarria faktore gisa erabiliz, **bariantza-analisia** egin zen, mendeko aldagaia hizkuntzaren abstrakzio maila izanik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretarako, **bariantza-analisiak** egin ziren marko bakoitzaren erabilera aztertuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontuan izan aldagai berria faktorea (**bariantza-analisiak** egiteko erabilgarria) edo zenbakizko aldagaia izatea interesatzen zaigula. ETC-zientzia, zuzenbidea

26 *diskurtsoaren analisi*

Lehenengo gaiak ikusten du **diskurtsoaren analisi** historikoa jatorri baten bilakuntza eta errepikapena bailitzan, determinazio historiko orori ihes egiten dion jatorriaren modura, hain zuzen: besteak ikusten du "dagoeneko-esanda" dagoen zerbaiten interpretazioa edo entzuketa modura, zeina aldi berean "ez-esandako" zerbait izango litzatekeen. Xabier Arregi

27 *faktore analisi* *(corpusean ez dago; ETCn 59 agerraldi)*

Faktore-analisia edo analisi faktoriala aldagai anitzeko datu-multzoak laburbiltzeko teknika estatistika estatistiko multzo bat da, bereziki aldagai kuantitatiboen arteko erlazioak aztertzen dituena, aldagai horien azpian izan daitezkeen aldagai konplexu edo "faktoreak" hautematea helburu duena. ETC-entziklopedia

Beraz, aurreko **faktore-analisirako** estrategian oinarrituz, estereotipoen konputu berriak egin ziren: Norbere gutxiengo-egoerako taldearekiko eta estatuarekiko afektuzko eta gaitasunezko estereotipoak batetik, eta herrialdeko eta estatuko informazioa bestetik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Feeney, Noller eta Hanrahan-ek (1994), esate baterako, item asko duen galdetegi baten **faktore-analisia** egin ondoren, bikoteen intimitate-erlazioetan oinarrizko bost faktore daudela azaldu dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zazpi talde nazionalen ebaluaketari buruzko puntuaketak Oblimin Rotazioko **faktore-analisi** baten bidez aztertu ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehenengo, KFAren bidez HIESari buruzko kontzepzio partekatuak aztertu dira, eta ondoren norbanakoen kokapenak, KFA eta **Faktore Analisiaren** bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, teknika estatistiko ugari daude: erregresio anizkoitza eta korrelazioa, **faktore-analisia**, analisi diskriminatzailea, interpolazio lerromakurrak, eta azalak doitzeko prozesuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alde batetik, **faktore-analisiak** eta sailkapenanalisiak osagarri gisa erabiltzen dira baina, beste alde batetik, taula anizkoitzen kasuan kokaturik, izaera desberdina duten taulak batera aztertzen ditugu aldagai hertsiak eta irekiak edo testualak batera tratatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Korrespondentzien **faktore-analisia** taulen ikerketarako tresna da. ETC-zientzia, zuzenbidea

28 *Fourierren analisi* *(corpusean ez dago; ETCn 16 agerraldi)*

Fourierren analisiak erabilera asko izan du XX. mendean eta ezinbestekoa da zien-tzia eta teknologiaren alor askotan. ETC-zientzia, zuzenbidea

w>Fourierren analisiaren bidez kalkulatua izan daiteke, behin-behineko seinale bat erabiliz. Tarte honetan sartutako frekuentziek frekuentzia eraginkor izena ere hartzen dute. ETC-entziklopedia

Beste arlo asko ere landu ditu: ekuazio partzial diferentzialak, **Fourierren analisia**, konbergentzia partikularra, biderkatzaileak, dibergentzia, ezohiko integralak eta Hardy espazioak. ETC-entziklopedia

Zure ikerketa lanari dagokionez, **Fourierren analisiaren** inguruan diharduzu. ETC-prentsa

29 *funtsezko analisi*

Badira honezaz gain beste formaldatze gehiago, perpausen **funtsezko analisi** berean oinarritzen direnak, hots, (37) ko egitura-ereduetan. Itziar Laka

30 *korrespondentzien analisi* *(corpusean ez dago; ETCn 6 agerraldi)*

Azkenik, bi dimentsioen inguruko komentario bat egin behar da analisi honetan (horretarako oso baliagarriak izango dira **korrespondentzien analisia** eginda lortutako zenbaki eta estatistikoak). ETC-zientzia, zuzenbidea

Estatistikan, **korrespondentzia-analisia** kontingentzia taula bateko bi aldagai koalitatiboetako kategoria ezberdinen artean dagoen erlazioa (erakarri/aldendu) hauteman eta irudikatzeko teknika bat da, bere bertsiorik sinpleenean. ETC-entziklopedia

31 *odol analisi*

TATen arabera, hori ezin da begiratu batekin antzeman, baina **odol analisien** bidez posible da, eta medikuak ez zuen ezer egin. Berria - Euskal Herria

"Egonkor egon arren, GIB birusa dutenek hiru hilabetean behin joan behar dute medikura eta **odol analisiak** egitera», azaldu zion Garciak kazeta honi. Berria - Gaiak

Gure diagnostikoa emateko, froga sendoagoak behar genituen, eta hori **odol analisiaren** bitartez lortu dugu. Berria - Mundua

Ez da ondo sentitzen eta **odol analisiak** eta guzti egingo ditu zer gertatzen zaion jakin nahian. Berria - Kultura

Goizean goiz egindako **odol analisiaren** emaitzak ikusi ondoren, bada, pisarazi du gaixoa eta kalkulagailua atera du mantalaren sakelatik. Imanol Zurutuza

1990 inguruan, hiesaren arazoa pil-pilean zegoenean, hainbat euskal presori **odol analisiak** egin eta seropositiboak zirela erakutsi zieten. Jokin Urain

Azterketa ginekologikoa eta zitologia egingo dizu, eta **odol analisia** egiteko aginduko dizu, berariaz pilula hartzeko egiten dena. Luis Elberdin

Oraindik **odol analisietako** mugak gainditzen ez dituen animaren lohiak itotzen bazaitu. Lourdes Oñederra

32 *osagai nagusien analisi* *(corpusean ez dago; ETCn 33 agerraldi)*

Aldagai anitzeko estatistikan, **osagai nagusien analisia** (ONA) edo "Principal Components Analysis (PCA)" elkarrekiko independenteak eta ergodikoak den aldagai multzo edo "osagai" multzo batetik bariantzarik gabeko aldagai kopuru bat osatzea da, hasierako osagaien korrelazioa agerian uzteko helburuarekin. ETC-entziklopedia

Horregatik, analisi multibariantea egin behar da (**osagai nagusien analisia**), n ardatz horiek 3raino murrizteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Galdesortaren fidagarritasuna, baliotasun faktoriala (dimentsionalitatea) eta irizpide-baliotasuna aztertzeko Windows-erako SPSSren 11.5 bertsioa erabili zen, hain zuzen, **osagai nagusien analisia** varimax errotazioarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lortutako emaitzen tratamendu estatistikoa (korrelazio-analisia) eta kimiometrikoa (**Osagai Nagusien Analisia**) egin genuen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bilaketa hori teorikoa baino gehiago enpirikoa denean, **osagai nagusien analisia** erabiltzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Faktore-analisian aldagai kopurua txikitu egin da **Osagai Nagusien Analisiaren** bitartez (Principal Component Analisys, PCA). ETC-zientzia, zuzenbidea

33 *sare sozialen analisi* *(corpusean ez dago; ETCn 17 agerraldi)*

Sare sozialen analisia, sareen teorian oinarriturik (diktiologia, edo grafoen teoria), sare sozialen azterketan funtsatzen den ikusmolde soziologikoa da. ETC-entziklopedia

Sare sozialen analisia egin dugu, eta iritzietan kate berriaren gaineko sentimendu on ugari dago. ETC-prentsa

Sare sozialen analisia askotariko diziplinek osatzen duten ikerketa eremu berrienetako bat da. ETC-literatura, saiakera

Sare sozialen analisiak ez dauka taldeenak bezain ibilbide luzerik, baina bai etorkizun oparoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

34 *sareen korronteen analisi* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Sareen korronteen analisia. ETC-entziklopedia

35 *sentimenduen analisi* *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Sentimenduen analisia, iritzien meatzaritza, edo emozioen adimen artifiziala egoera afektiboak eta informazio subjektiboa aztertzeko zenbait tresna erabiliz egindako analisia da. ETC-entziklopedia

Adibidez, informazioaren erauzketan, testuen laburpenean, galderak erantzuteko sistemetan, itzulpen automatikoan, **sentimenduen analisian** edota irakurketa automatikoan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta hizkuntzarteko lotura horiek oso baliagarriak izan daitezke, SNLI n zein beste hainbat atazatan (itzulpen automatikoan, **sentimenduen analisian**, antzekotasunean...). ETC-zientzia, zuzenbidea

Besteak beste, informazio erauzketan, testuen laburpenean, galdera-erantzun sistemetan, **sentimenduen analisian** eta itzulpen automatikoan aplikatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

36 *zenbakizko analisi* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Zenbakizko analisia, problema matematikoei hurbilpenezko soluzioak topatzea ahalbidetzen dituzten algoritmoak aztertzen dituen matematikaren adarra da, analisi matematikoaren arlo bat. ETC-entziklopedia

Handik gutxira, 1956an, M. J. Turner, R. W. Clough, H. C. Martin eta L. J. Topp irakasleek ezarri zuten **zenbakizko analisiaren** definizio zabalago bat. ETC-entziklopedia

Informatikariaren lana ikerketa-arlo zehatzetan koka daiteke, besteak beste, algoritmo eta datu-egitura-ren garapen eta diseinuan, software ingeniaritzan, informazioaren teorian, datu-baseetan, konplexutasun konputazionalen teoriatan, **zenbakizko analisian**, programazio-lengoaien teorian edota ikusmen artifizialean. ETC-entziklopedia

Esan gabe doa doitutako ekuazioa garrantzitsua dela bateriaren gelaxkan elektrolitoaren jokaera **zenbakizko analisiaren** bitartez deskribatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Matematika diskretua da software-ingeniaritzaren euskarri matematiko/zientifikoa, bestelako ingeniaritzen euskarria kalkulu infinitesimala, estatistika edo **zenbakizko analisia** diren bezalaxe. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

analisi bat (11); **analisi batzuen** (3); **analisi egin** (8); **analisi egiten** (3); **analisi genetikoa** (4); **analisi genetikoak** (5); **analisi genetikoak egin** (3); **analisi guztiak** (3); **analisi guztiek** (3); **analisi hau** (3); **analisi historikoa** (3); **analisi hori** (6); **analisi horiek** (5); **analisi horrekin** (4); **analisi horren** (4); **analisi kritikoa** (3); **analisi logikoa** (4); **analisi matematiko** (4); **analisi objektiboak** (3); **analisi politikoak** (4); **analisi sakon** (3); **analisi sakona** (4); **analisi subjektiboa** (4); **buruzko analisi** (4); **eginiko analisi** (3); **gernu analisi** (3); **gure analisi** (4); **odol analisi** (7); **zein analisi** (4)

analisia egin (28); **analisia egin eta** (4); **analisia egin zuen** (6); **analisia egitea** (3); **analisia egitean** (4); **analisia egiteko** (9); **analisia egiten** (8); **buruzko analisia** (4); **egitura analisia** (3); **egoeraren analisia** (3);gure analisia (3); **inguruko analisia** (3); **odol analisia** (4)

analisiak aldatzeko (3); **analisiak aldatzeko prest** (3); **analisiak egin** (19); **analisiak egin eta** (3); **analisiak egingo** (10); **analisiak egingo dira** (4); **analisiak egiteko** (12); **analisiak egiten** (5); **analisiak egitera** (3); **analisiak izan** (3); **analisiak oso** (3); **egindako analisiak** (3); **gernu analisiak** (5); **listu analisiak** (3); **nazioarteko analisiak** (3); **odol analisiak** (22); **odol analisiak egin** (5); **odol analisiak egingo** (5)

gure analisian (4)

analisiaren arabera (4); **analisiaren bitartez** (4); **analisiaren emaitzak** (8); **analisiaren inguruko** (3); **analisiaren inguruko pedagogi** (3); **egin analisiaren inguruko** (3); **osagai analisiaren** (4)

analisiek erakutsi (3); **analisiek erakutsi dute** (3); **egindako analisiek** (4)

analisien arabera (5); **analisien emaitzak** (15); **egindako analisien emaitzak** (3)

egindako analisietan (3); **egindako odol analisietan** (3); **odol analisietan** (6)

analisirik egin (5)

---

analista 1 *iz* zerbaiten analisia egiten dituen pertsona.

Analista horrek maratz-maratz zerrendatu zituen emaitza hain nabarmenkiro susmagarri baina formalki aitzakiagabe haiek; zorroztasun-grina biziz sinatu zuen analisi bakoitza. Juan Garzia

Zenbait **analistak** diote egoera honetan gerra piz daitekeela, eta beste zenbaitek baieztatzen dute Georgiak nazioarteko arreta erakarri nahi duela, Errusiak gatazkan bitartekari izateari uzteko. Berria - Mundua

Etxebek, nik bezala, Ekonomia ikasi zuen; nik ez bezala, ekonomilari lana topatu zuen, **analista** gisa, burtsa-agentzia batean. Iban Zaldua

Linea kontserbakorra daukagu bestetik: Iraultza Frantsesak berehala izan ditu gisa honetako behatzaile eta **analistak**, Tocqueville bat Frantzian, Burke Ingalaterran, L. von Stein Alemanian. Joxe Azurmendi

Jonathan Power **analistak** *International Herald Tribune* egunkarian idatzi berri duen artikulua. Berria - Euskal Herria

Analistak artelanaren aurrean duen egitekoa ez da, horrenbestez, irudikatua interpretatzea, irudikatu horren bidez erreprimitzen dena interpretatzea baizik; ez produktu burutua, beraz, produktu horretan beren aztarrena utzi duten eragiketa inkontzienteak baizik. Josu Zabaleta

Nolanahi ere, alderdi operatibotik bakarrik interesatzen zaie **analistei** [...], azentuaren kokalekua zehazteko, segmentuen zenbait ordezkatze sistematizatzeko. Lourdes Oñederra

Hizkuntzalariek diskurtso hitzari zentzu erabat ezberdina eman ohi diote; logikoek eta **analistek** beste modu batean darabilte. Xabier Arregi

Analistek diote Ibex indizea %10 eta %15 artean errebalorizatuko dela. Iñaki Heras

Aditu eta **analistek** jada aurreikusten zuten hazkuntza defizitean, baina iragarritako 53.000koa baino handiagoa izan da azkenean inportazio eta esportazioen arteko aldea. Berria - Ekonomia

Are gehiago, **analistek** ez dute espero interes tasetan inolako aldaketarik hurrengo urteko erdia arte. Berria - Ekonomia

Analista guztiek espero bezala, AEBetako Erreserba Federalak puntu laurden igo zituen atzo interes tasak, %2tik %2,25eraino. Berria - Ekonomia

Idazleok eta psikoanalistak espezie berekoak omen ginen: **analistek** joera sadikoa zuten, eta guk, berriz, idazleok, masokista tankerakoa. Ramon Saizarbitoria

Analisten arabera, pobrezia izan zen martxoko enfrentamenduen eragileetako bat. Berria - Mundua

CIArentzat lan egindakoa da David MacMichael, zerbitzu sekretuetako Inteligentzia arloko **analista** gisa. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Munduan gertatu diren aldaketen berri emateko nolabait, **analista** politikoek nahitaez parte-hartze demokratikoari buruz zerbait esan beharko dute. Askoren artean

Manuel Castells bezalako **analista** seinalatua honelako ondoriora iritsi da: [...]. Joseba Zulaika

Analista palestinarrek diote Sharonek, bere gogortasunean, Gazako kokagune guztietatik eta Zisjordaniako lautik erretirada gauzatu zuela, abuztuan. Berria - Harian

Kazetaria eta nazioarteko **analista** da. Iñaki Heras

3 (hitz elkartuetan)

Sedano partaide zen **analista** taldeak hura Espainiako ordezkari izendatu ondoren, Europako Biltzarrean literatura eta neurosiari buruzko mahai-inguru batean nire izena sartzeko moldatu zelako nengoen Londresen. Ramon Saizarbitoria

Burtsako balore zerrenda bati dardoak botatzen ari diren tximino begi estaliek eta finantza **analistek** aukera bera dute balore arrakastatsuak zeintzuk izango diren aurreikusteko orduan. Iñaki Heras

4 *analista-programatzaile* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ibermaticako lan hitzarmenean programatzaile baten urteko soldata 2008. urtean 12.701,92 euro da, eta **analista-programatzaile** batena, berriz, 13.822,74 euro. ETC-prentsa

Esan zion IBM ordenagailu berri-berri bat ekoizten hasiko zela Italian, Vimercateko plantan, eta Napoliko filialak zulatzaile-egiaztatzaileak, langileak eta **analista-programatzaileak** beharko zituela. ETC-literatura, saiakera

Analista eta programatzaileen arteko komunikazio arazoa dela eta (dokumentu bat ez da nahikoa zer egin nahi den azaltzeko) beste lan kategoria bat sortu zen **analista-programatzailea** deiturikoa. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **analista guztiek** (3); **analista politiko** (5); **analista politikoa** (4); **analista politikoak** (3)
> **bankuko analistak** (4); **zenbait analistak** (3)
> **analistek ez** (3); **analistek uste** (3); **dute analistek** (4)
> **analisten arabera** (8)

---

analitika *iz* zerbaiten azterketa arretatsu eta xehea.

ANALITIKA ETA ORAINAREN ONTOLOGIA GAUR. Askoren artean

Oinarri-esakuneen **Analitika**, beraz, juzgamenarentzako kanona besterik ez da izango, eta honek apriorizko erregelentzako baldintzak diren adimenaren adigaiak agerpenei aplikatzen irakasten du. Ibon Uribarri

Sailkaketa honen arabera honela uler daiteke laburki Kanten Filosofia transzendentala: **Analitika** transzendentala pentsatzearen forma hutsen teoria positiboa da, hau da, egiazkoak ez ezik, egiazko ezagutza ororen baldintzak ere badiren formen teoria. Ibon Uribarri

Analitika transzendentalean, adibidez, oro har gertatzen denaren adigai baten ahalgarritasun objektiboaren baldintza bakarretik abiatuta oinarri-esakune hau atera dugu: "gertatzen den guztiak kausa bat du". Ibon Uribarri

Analitika eta Dialektika transzendentalean. Ibon Uribarri

Kanten opuskulua komentatuz, 1983an, bere bizitzaren bukaeran Foucaultek hor ikusi zituen in nuce XX. mendeko filosofia osoaren ahalegin guztiak, bai egiaren **analitikarenak** bai orainaren ontologiarenak. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **analitika transzendentala** (6); **analitika transzendentalak** (4); **analitika transzendentalaren bigarren** (3); **analitika transzendentalean** (6)
> **oinarri esakuneen analitikaren** (3)

---

analitiko 1 *izond* analisiarena, analisiari dagokiona; anilisiaren bitartez lortua.

Ezpiritü sintetiko bat heben, gaüzak orokorki eta globalki borogatzen dütüana; ezpiritü **analitiko** bat han, xehetarzünetan trebeki sartzen dena. Herria

Trebetasun berezi bat eskatzen du kritika mota horrek, irakurtzeko era **analitiko** bat: atalak zelan banatu. Markos Zapiain

Emaitza orokor legez, **"analitiko"** terminoak esanahi finko bakarra ez duela ikusi da. Askoren artean

Filosofia **Analitikoan** diharduten autoreek garrantzi handia eman zioten hasieratik beretik hizkuntzaren azterketari. Hizkuntzaren Filosofia XX mendearen hasieran sortu zela esan dezakegu, filosofia **analitikoarekin** batera. Askoren artean

Azken boladan, zenbait filosofo **analitiko** -Rorty eta Putnam, besteak beste- hermeneutikaren metodologietara hurbildu dira eta Ernest Tugendhat eta Paul Ricoeur filosofo kontinentalak metodologia **analitikoetara** hurreratu dira, Wittgensteinen filosofia eta Heideggerrena parekatuz. Askoren artean

Geometria **analitikoa** (aljebraren bitartez lotura bat ezartzen baitu zenbakien eta espazio geometrikoaren artean). Jon Muñoz

John Wilkins-en hizkuntza **analitikoaren** azterketan luzatu nintzen, orobat, non hitz bakoitzaren definizioa hura osatzen duten letretan baitago. Juan Garzia

Teoria **analitiko** hauek inbariantzaren hipotesi deitu ohi denaren erabileran oinarritzen dira guztiak. Josu Zabaleta

Erantzun **analitikoak** agian pentsatzea argitzen du, baina ez du ematen ezagutza hedaturik pentsatze hori bere ahalgarritasunean funtsatzen duenaz. Ibon Uribarri

Oso gogoan hartu behar da, beraz, pertzepzioaren elementuak -argitasuna, ertzak, koloreak- ez direla inoiz bakanka gertatzen, era **analitikoan**, denak batera baizik, eta baten pertzepzioak eragina duela besteak pertzibitzeko moduan. Josu Zabaleta

Judizio **analitikoen** eta sintetikoen arteko bereizketaz. Ibon Uribarri

Lantzen ari zaren gaia edo autorea zein diren jakinda, liburuko aurkibide **analitikoan** edo izenenean bilatu zein orritan agertzen diren aipatu hitzok, eta orrialde horiek irakurtzearekin bakarrik askotan nahikoa izaten da bilatzen duzun informazioa eskuratzeko. Askoren artean

Antza denez, antzinako latina egokia da bertan azterbide **analitikoarekin** lan egiteko. Isabel Arrigain

Beraz, ikuspegi **analitikoa** da: osoa eratzen duten zatiak aurkitu, eta osoari buruzko dena ikasi eta azaltzeko gauza izatea espero du. Askoren artean

Humboldten ikuspegiak **analitikoa** izan nahi du, hau da, lan razional bat da, ikerketa bat. Koldo Izagirre

Era berean, Geometria hutsaren ezein oinarri-esakune ere ez da **analitikoa**. "Bi punturen arteko lerro zuzena motzena da" esakune sintetikoa da. Ibon Uribarri

2 *filosofia analitiko*

Horren baitan **filosofia analitikoa** dugu, batez ere giro anglofonoetan eragin handikoa. Askoren artean

Lan horretan, anglo-saxoniar **filosofia analitikoaren** estilo guztiz abstraktuan egina baita, analogiaren eta irudikapenaren gaiak bigarren mailako gaiak dira biak. Josu Zabaleta

UBIko programan, berriz, filosofiaren historia osoa ageri zen, hasi presokratikoetatik eta **filosofia analitikoraino**. Joxerra Garzia

3 *geometria analitiko*

Apolonioren jarraitzaile gisa, **geometria analitikoa** sortu zuen; Diofanteren jarraitzaile gisa, zenbakien teoria. Jon Muñoz

4 *hizkuntza analitiko*

Jakingura dena saia liteke México kaleko Liburutegi Nazionaleko apal ilunen batean lurperaturik egon behar duen nire John Wilkins-en **hizkuntza analitikoaren** azterketa laburraren ale bat bilatzen; beste argitalpen bat ondo merezi lukeen lana bera: besterik ez bada, dituen akats ugariak zuzendu edo ematzeko. Juan Garzia

5 *kimika analitiko* *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi)*

Kimika analitikoa: osagai kimikoen banaketa aztertzen duena. ETC-entziklopedia

Kimika analitiko ikasketak Donostian hasi zituen, eta, ondoren, Londresera joan zen karrera bukatzera. ETC-prentsa

Kimika analitikoan erabili ohi diren teknikez baliatu da Morillos eraikinek dituzten patologiak aztertzeko. ETC-prentsa

2020an Martera joango den tresna baten eraikuntzan parte hartzen ari da EHUko IbeA **kimika analitikoko** ikerketa taldeko zuzendaria. ETC-prentsa

Canciok azaldu du zentroko ikerketa adarrek mikroskopia aurreratua, biologia molekularra eta **kimika analitikoa** baliatzen dituztela osasunaren, itsasoaren eta kutsaduraren arteko harremanak aztertzeko. ETC-prentsa

Erreakzioa bat-batean geldiaraz badaiteke, **kimika analitikoaren** metodoak erabiltzeko modua izango dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bertan ikus daitekeenez, jakintza-arloak markatzen dira jadanik (Kimika > **Kimika Analitikoa**), eta baita beste hizkuntza batzuetako termino baliokideak (kasu honetan ingelesez eta gaztelaniaz). ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *kontabilitate analitiko* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Kudeaketarako kontabilitatea, **kontabilitate analitikoa** edo kostuen kontabilitatea da kontabilitatearen beste adar bat. ETC-entziklopedia

Kontabilitate analitikoarekin jakin liteke zenbat gastatzen den programa bakoitzean. ETC-prentsa

7 *martxa analitiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Martxa analitikoa erreakzio kimikoen bitartez ioi inorganikoak disoluzioetan identifikatzeko prozesu tekniko eta sistematikoa da. ETC-entziklopedia

8 *mekanika analitiko* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Coriolis-ek billar jokoaren **mekanika analitikoari** buruzko liburua idatzi zuen. ETC-literatura, saiakera

Beste horrenbeste gertatuko litzateke **mekanika analitikoarekin**, eta zientzia logikoki deduktibo baten beste edozein azalpenekin ere. ETC-literatura, saiakera

Horren bertsiorik ospetsuena, zalantzarik gabe, ekintza minimoaren printzipioa dugu; dotore deduzitzen da hartatik **mekanika analitikoa**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arazo horiek gainditzeko, **mekanika analitikoan** koordenatu orokortuak erabiltzen dira; horien bidez, sistema mekanikoak dituen askatasun-graduak definitzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

1912tik 1914ra arte, fisika teorikoko katedraduna izan zen ETH Zurichen, eta bertan **mekanika analitikoa** eta termodinamika irakatsi zituen. ETC-entziklopedia

Mekanika analitikoaren oinarrizko ekuazioak dira. Partikula sistema baten energia zinetikoa (T), koordenatu orokortuak (qi), indar orokortuak (Qi) eta denbora (t) erlazionatzen dituen ekuazioak dira. Sistemaren "askatasun gradu" bakoitzeko ekuazio bat izaten da. ETC-entziklopedia

9 *metodo analitiko*

Hizkuntzalaritza, berez, gera daiteke bigarren azterketa maila horretan; eta haren **metodo analitikoaren** helburu bakarra zatizko oharketa horiek direla ere esan dezakegu. Isabel Arrigain

Berrogeita hamarreko urteetan, datuetatik gramatikara eramango zuen **metodo analitiko** bat aurkitzeko saioak ziren nagusi hizkuntzalaritzan. Itziar Laka

10 *proba analitiko* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Proba analitikoak edo analisiak medikuntzan diagnostikoa lortzeko laborategian egiten dituzten proba osagarri mota bat dira. ETC-entziklopedia

Gaixotasun horren **proba analitikoa** egiten diete ginekologoek haurdun dauden emakumeei aurreneko kontrolean. ETC-prentsa

Eliseo Gilek berak beste zenbait aditurek 13 txosten aurkeztu zituen iragan astean, grafitoen benetakotasunaren alde, eta Arabako Diputazioari eskatu zion objektuen **proba analitikoak** egin zitzan afera argitze aldera. ETC-prentsa

Horrela, gai hau argitzeko daukagun bide bakarra zein den adierazten digu: zientzia, **proba analitikoak**, ostrakak benetakoak diren ala ez zehaztuko dizkigutenak. ETC-prentsa

11 *psikologia analitiko* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Carl Gustav Jung suitzar psikiatria izan zen, **psikologia analitikoa** sortu zuena. ETC-entziklopedia

Psikologia analitikoaren praktika psikoterapeutikoak pazienteak inkontziente kolektiboarekiko duen harremana ikertzen du. ETC-entziklopedia

"Mysterium coniunctionis" (1955-1956) obran, alkimia eta **psikologia analitikoaren** arteko talkaren azken ezarpenak lotzen ditu. ETC-entziklopedia

Hartmannek **psikologia analitiko** orokorra zein analista batek norbanako baten funtzionamendua ebaluatzeko eta interbentzio terapeutikoak proposatzeko bitarteko kliniko bat sortu zuen. ETC-entziklopedia

Bada, bera ausartu egin da: A Dangerous Method filmean, **psikologia analitikoaren** sortzaile Carl Gustav Jungen barne gatazka kontatzen du zuzendari kanadarrak. ETC-prentsa

Psikoanalisiaren beste aitzindarietako bat izan zen, eta **psikologia analitikoa** delakoa sortu izanagatik da ezaguna. ETC-prentsa

Psikoanalisiak eta **Psikologia Analitikoak** bide ezberdinetatik ibili badira eta badabiltza ere, azken hogeita bost urteetako hainbat garapenek interesen bateratzea eragin dute hainbat arlotan. ETC-literatura, saiakera

Haien diseinuak zeharkako sekzioaren eta bi dimentsioko siluetaren alborakuntza zuen ardatz eta antzinateko inongo arraza ezagunek inoiz iritsi zuenaz gaindiko **psikologia analitikoa** adierazten zuen. ETC-literatura, saiakera

12 *zenbakien teoria analitiko* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

1903an, Landau-k zenbaki lehenen teorema izenarekin ezagutzen zenaren froga askoz ere errazagoa eman zuen eta, ondoren, **zenbakien teoria analitikoaren** lehenengo jokaera sistematikoa aurkeztu zuen Handbuch-en. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **analitiko bat** (5); **filosofia analitiko** (3)
> **batasun analitikoa** (4); **esakune analitikoa da** (4); **filosofia analitikoa** (6); **geometria analitikoa** (5); **judizio analitikoa** (3); **judizioa analitikoa** (3)
> **esakune analitikoak** (3)
> **filosofia analitikoan** (3); **zati analitikoan** (4)
> **filosofia analitikoaren** (4); **geometria analitikoaren** (3)
> **analitikoen eta sintetikoen** (3); **judizio analitikoen** (4)

---

analitikoki *izlag* era analitikoan; ikuspuntu analitikotik.

Maimonen arabera, Aristoteles oso kontuz ibili zen eta ez zuen uste izan bere argudioak **analitikoki** baliozkoak zirenik. Xabier Kintana

Horrela, berari jarraiki egun batean agian arrazoimen hutsaren Filosofiaren sistema osoki aurkeztu ahal izango da **analitikoki** nahiz sintetikoki, bere ezagutzen hedapenaz nahiz mugapen soilaz osatzen bada ere. Ibon Uribarri

A priori sintetikoki pentsatua zegoena a posteriori **analitikoki** itzultzen digute, eta gainera, biak adostuz. Ibon Uribarri

Haiek **analitikoki** baino ez direla sortzen analisiaren bitartez (beren osotasuna apodiktikoki ziurra izan gabe), hauek sintetikoki, eta beraz, adigaia bera eginez, besteek, aitzitik, adigaia argitu besterik egiten ez duten bitartean. Ibon Uribarri

Orduantxe pasatzen da Unamuno, lehenago euskararen pobretasuna teoria jakin bateko filologo gisa **analitikoki** egiaztatzera zuhurki mugatu izatetik, mintzaira horren abandonoa gudakoiki Bilbon aldarrikatzera. Joxe Azurmendi

Sagardoa, **analitikoki**, ona den jakiteko honako parametroak hartzen direla kontuan azaldu digu Kamiok: mostoaren edo sagardoaren azidotasuna, taninoa, alkohola eta ph-a. Berria - Euskal Herria

---

analitikotasun *iz* analitikoa denaren nolakotasuna.

Beraz, **"analitikotasuna"**, "esanahia" eta "definizioa" gurpil zoro batean nahasita dauden kontzeptu ilunak dira. Askoren artean

Erredukzionismoa ontzat ematen badugu, "esanahi" kontzeptua (eta beraz, baita **analitikotasuna** ere) erabilgarri eta ulergarri egingo dugu. Askoren artean

Analitikotasuna definitzerakoan definizio kantiarra hartu izan da oinarritzat: perpaus bat analitikoa izango da baldin eta soilik baldin (bsb) subjektuak, atxiki zaion predikatua, jada inplikatzen badu. Askoren artean

Enpiristak -neurrizkoak batez ere- zailtasun hori gainditzen ahalegindu dira **analitikotasunaren** nozio berriak garatuz Kantena ordezka dezaten. Askoren artean

Nahasketa saihesteko, **analitikotasunaren** nozio eraldatu sinpleena Gottlob Frege-k aurkeztu zuena da. Askoren artean

Quinek Hizkuntzaren Filosofiari eginiko ekarpen nagusia esanahiaren kontzepzio tradizionalari (eta, horren bidez, **analitikotasunari**) egiten dion kritika da. Askoren artean

---

analito *(corpusean ez dago; ETCn **230** agerraldi) iz* analisietan detektatua izatea merezi duen substantzia kimikoa.

Analitoa kimika analitikoan analizatu nahi den intereseko objetua da. ETC-entziklopedia

Erreaktibo baten kontzentrazio eta bolumen ezaguna (titulagailua), beste erreaktibo baten bolumen ezagunari (**analitoa**) eransten zaio. ETC-entziklopedia

Askotan, laginak jasotzeko, kontserbagarri bat erabiltzea gomendatzen da **analitoen** degradazioa ekiditeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Analitoen kontzentrazioak oso baxuak dira (?g/L, ng/L eta are txikiagoak ere) eta, beraz, instrumentazio analitikoa oso berezitua da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Detektagailuan 210 nm-ko uhin-luzera finkatu zen **analitoak** kuantifikatzeko (zenbait salbuespenekin), eta barne-patroiaren metodoa erabili zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, balorazio-erreakzioa baloratzailearen eta **analitoaren** arteko protoi-trukaketa erreakzioa izango da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste teknika analitiko batzuekin alderatuz, masa espektrometriak informazio gehigarria ematen du, **analito** baten eta horren zatien masa molekularrak, esate baterako. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

analizaezin *izond* ezin analizatuzkoa.

Gibsonen teoriak erretinako proiekzioa gauza banaezintzat, **analizaezintzat** hartzea du ekarpenik berriena. Josu Zabaleta

---

analizarazi, analizaraz(i), analizarazten du *ad* analizatzera behartu.

Gure laboratorio xume eta ausart hartan, gauzarik xelebreenak **analizaraztera**, askotariko jendea etortzen zen, gizon eta emakume, zahar eta gazte, baina denak nabariki sartuak merkataritzaren saretzar anbiguo eta maltzurrean. Juan Garzia

---

analizatu *(orobat **analisatu** g.er.)* zerbaiten analisia egin.

Adimenak aldez aurretik ezer lotzen ez badu, orduan ezin du ezer **analizatu**, zeren adimenaren bitartez besterik ezin baitzaio eman indar errepresentatzaileari lotuta dagoen zerbait. Ibon Uribarri

Irakurleak ez du ulertzen tematu behar, ez du **analizatu** behar. Berria - Kultura

Ez genuke egoera eskema tradizionalekin **analizatu** behar: eskuineko alderdia eta ezkerreko alderdia. Berria - Harian

Jarraian adigai hauek **analizatuko** ditut, baina hemen erabiltzen dudan metodoaren irakaspenarentzat aski den mailan besterik ez. Ibon Uribarri

Soziologoek **analizatuko** dute, eta psikologoek esplikatuko, nola joan ginen gerla ondoan seminario eta komentuetara, orgataraka. Piarres Aintziart

Ez dira artaldean gelditzen, eta obserbazione hori izateari sartzen ahal baldin bada, uste dut "le phénomène de l'exclusion" behar dela **analizatu**, ikertu. Menane Oxandabaratz

Hartarako, zatiki magnetiko bat bainuen **analizatu** beharra (eta, beraz, uste izatekoa zen, silikatoz pobrea) eta presari men eginez, aldaera sinplifikatu bat saiatu nuen ber-bertan. Juan Garzia

Zer zegoen egiazkorik Luluren egiatia izan behar eta dena **analizatu** beharreko mania horretan? Josu Zabaleta

Errektore irrizaleak zioenez, une horretan kimikalariren batek **analizatu** izan balu, doktorearen osaeraren bi herenak paper zaharrak hartzen zituela aurkituko omen zuen. Josu Zabaleta

Besteren artean Laszlo Moholy-Nagy-k bere *Malerei Fotografie Film* (Margolaritza Argazkia Film, 1925) liburuan, argazkiak margolaritzatik bereizten duena landu behar duela eskatzen du, eta mugimendua **analizatu**, mundua mikroskopioan erakutsi, inoiz erabili gabeko ikuspuntuetatik begiratu, eta abar. Josu Zabaleta

Hamabi zenbakiaren adigaia ez dago inolaz ere jadanik pentsatua zazpi eta bosten bateratzea pentsatzen dudanean, eta halako batuketa ahalgarri baten nire adigaia luze **analizatu** arren, ez dut bertan inoiz hamabia aurkituko. Ibon Uribarri

Zure lanaren gaia arreta handiz **analizatu**. Askoren artean

Enpiristak ez du inoiz baimenduko izadiaren garairen bat lehen-lehengotzat onartzea, edo bere ikusmenaren mugaren bat bere hedapenari dagokionez urrunentzat hartzea, edo behaketa eta Matematikaren bitartez **analizatu** eta begiespenean sintetikoki determina ditzakeen izadiaren objektuetatik (hedatukia) ez sentsuak ezta irudimenak ere inoiz *in concreto* aurkeztu ezin ditzakeen haietara igarotzea. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **analizatu behar** (6)
> **analiza daiteke** (3); **analiza daitezke** (3); **ezin analiza** (3)

---

analizatzaile 1 *iz* zerbait analizatzen duen pertsona.

Badirudi esakune hau giza arrazoimenaren **analizatzaileen** oharrei orain arte itzuri egin zaiela, eta beren susmoei zuzenki kontrajartzen zaiela ere bai, nahiz eta kontraesan ezin den eran ziurra eta ondorioetan oso garrantzitsua den. Ibon Uribarri

2 ***analizatzaile morfologiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **32** agerraldi)*

Errima bilatzailea, azken batean, Ixa taldeak egindako sortzaile **analizatzaile morfologikoan** oinarritzen da. ETC-prentsa

Xuxen azpiproduktu bat da, **analizatzaile morfologikoa** du oinarrian. ETC-prentsa

Analizatzaile morfologiko automatikoen eginkizuna da hizkuntza bateko hitz bat hartu eta haren erroa eta erro horri lotutako hizki guztiak bereiztea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eustagger bi-mailatako formalismoan oinarrituta sortu zen estaldura zabaleko **analizatzaile morfologikoa** da. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 ***analizatzaile sintaktiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **69** agerraldi)*

Analizatzaile sintaktiko bat gramatika formalaren arauei jarraituz karaktere-kate bat analizatzeko erabiltzen den programa informatikoa da. ETC-entziklopedia

Tresnei dagokienez, aplikazioak egiteko erabiltzen diren tresna orokorrak honakoak dira: lematizatzailea, **analizatzaile sintaktikoa**, desanbiguatzaile semantikoa eta abar. ETC-prentsa

Oinarriak finkatu behar genituen, eta proiektu bat planteatu genuen horretarako: lexikoa prestatu, analizatzaile morfologikoak egin, **analizatzaile sintaktikoak** ... ETC-prentsa

Makinei dagokienez, sinplifik azioa aurreprozesu moduan erabil daiteke Hizkuntzaren Prozesamenduko (HP) zenbait sistematan: **analizatzaile sintaktikoan** (parser), itzulpen automatikoan, galde-erantzun sistemetan, laburpen automatikoak egiteko sistemetan; beste aparatuek (mugikorrak, PDAk, tabletak... ETC-zientzia, zuzenbidea

Arazoak arazo, sintaxi konputazionalak aurrera egin du eta **analizatzaile sintaktikoak** horren adibide dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

ixaKat4 webgunean hizkuntza analizatzeko baliabideak eskuragarri daude: oraingoz, euskararako etiketatzaile/desanbiguatzaile morfosintaktikoa eta **analizatzaile sintaktikoak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

analogia 1 *iz* berdinak ez diren gauzen arteko antzekotasuna edo antza.

Proportzioa erlaziotik sortzen da, grezieraz **analogia** esaten den horretatik. Santiago Iruretagoiena

Analogiak, sinbologiak eta metaforak erabiltzen ditu Jainkoaz hitz egiteko. Berria - Gaiak

Antigoaleko egiptoar izkribuok, berriz, poesia funtsean **analogia** dela erakusten digute. Patziku Perurena

Aldez aurretiko informazioak eraginak izaten direla **analogia** asko. Ramon Saizarbitoria

Analogia psikologia mailakoa da; baina hori onartzea ez da nahikoa gertaera fonetikoetatik bereizi ahal izateko, zeren fenomeno fonetikoak ere har baitaitezke psikologia mailako gertaeratzat. Isabel Arrigain

Analogiak aldez aurretiko eredu bat izatea eta eredu horren imitazioa eskatzen ditu. Isabel Arrigain

Egia da **analogiak** [...] desberdintasun foniko hori bera erakutsiko luketen bikote berriak sor ditzakeela. Isabel Arrigain

Analogiak erregulartasunaren alde jokatzen du, eta eraketa eta flexio moduak bateratzeko joera du. Isabel Arrigain

Analogia da hizkuntza baten arkitektura etengabe aldarazi ohi duten indar guztien laguntza onena, eta alde horretatik, bilakaera-eragilea da **analogia** . Isabel Arrigain

Analogiari dagokio, hain zuzen, hitzen kanpo itxuran gertaturiko aldaketa fonetikoak ez diren horiek guztiak. Isabel Arrigain

Mimesis **analogiaren** aski sinonimo egokia da, funtsean. Josu Zabaleta

Analogiaren inongo eraginik jasotzen ez duten bakarrak hitz soilak dira, hala nola izen bereziak, eta horien artean leku izenak. Isabel Arrigain

Barneko begiespen horrek ezein tankerarik ematen ez duenez gero, gabezia hori **analogien** bidez osatzen saiatzen gara. Ibon Uribarri

Lege honek, lege frantsesarekin **analogiarik** ez duten erlazioak gogorarazten ditu. Isabel Arrigain

Analogiaz sorturiko forma berria. Isabel Arrigain

Serora batzuk, **analogiaz** konturatuta, pikondoak baratzetik kentzearen aldekoak ziren. Patziku Perurena

Ondoren, aldaketa fonetikoak, alternantzia eta **analogiazko** gertaerak aztertuko ditugu, eta amaitzeko, hitz batzuk esango ditugu herri etimologiari eta aglutinazioari buruz. Isabel Arrigain

Analogiazko fenomenoak ez dira aldaketak. Isabel Arrigain

Horrekin esan nahi da Bera (gorets bedi!) ez dela aldakor, ez zaiola deus berririk gertatzen, baina ez, ordea, Jainkoa (gorets bedi!) denboraren esferan sartzen denik, Beraren eta denboraren barruan sarturik dauden gauzen artean nolabaiteko **analogiarik** balitz bezala, Bera, horrela "lehena" eta "azkena" gertatuz. Xabier Kintana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gizonaren gogora orduko, dena da **analogia** huts: erlijioa, poesia, zientzia. Patziku Perurena

Beste era batera esanda, Bazinen iritzian, **analogia** "perfektua" nahi izatea sustraitiko eta betidaniko premia du gizakiak; baina **analogia** perfektu hori gizakiaren produkzioetan ezusteko bat baizik ez dela uste duten teorialarietakoa da, orobat, Bazin. Josu Zabaleta

Gombrichek dioenez, pinturako **analogiak** (edo **analogia** ikonikoak, oro har) (10-1) bi alderdi ditu: [...]. Josu Zabaleta

Ez ditut alferrik gogora ekartzen **analogia** irudikagaitzok; badute zerikusirik Aleph-arekin. Juan Garzia

Lehenik aurkitutako hirutasunak: *mens, notitia et amor* delakoak Jaungoikoagana hurbiltzeko aurreneko **analogia** osatzen du. Imanol Unzurrunzaga

Horrekin esan nahi da Bera (gorets bedi!) ez dela aldakor, ez zaiola deus berririk gertatzen, baina ez, ordea, Jainkoa (gorets bedi!) denboraren esferan sartzen denik, Beraren eta denboraren barruan sarturik dauden gauzen artean nolabaiteko **analogiarik** balitz bezala, Bera, horrela "lehena" eta "azkena" gertatuz. Xabier Kintana

3 (hitz elkartuetan)

Analogia -adierazleak eta mailak. Josu Zabaleta

Ez da ustekabeko gauza, eta pertzepzioari dagokion aldetik, sakontasun-adierazleak **analogia** -adierazleen garrantzi handiko parte bat dira. Josu Zabaleta

Badira **analogia** -mailak, lehen terminoak duen garrantziaren arabera. Josu Zabaleta

Kode horietako batzuk ia unibertsalak izango dira (pertzepzioari dagozkionak), beste batzuk nahiko naturalak oraindik, baina gizarteak itxuratuagoak (**analogia** -kodeak, adibidez; [...]). Josu Zabaleta

Suposatzen da ondo definitutako espazio-denborazko esparru bateko gertaera guztien artean, arrastoa aurkitu ahal izan zaien fenomeno guztien artean, harreman homogeneoen sistema bat finkatu ahal izan behar dela, hauetako bakoitza ondorioztatzea zilegiko duen kausaltasun sarea, alegia, **analogia** -harremanak elkar nola sinbolizatzen duten erakusten dutenak. Xabier Arregi

Gaur egun bertan ere, kubismoa bera, jendeak egiaz estilo artistiko bikaintzat hartzen badu ere, irudikapen deformatzaile bezala hartzen da, ia beti gutxi-asko argazkiarena izaten den **analogia** -arautik urruntzen den irudikapen modu bat bezala, alegia. nahiago dugu adierazle kontzeptua erabili (eta **analogia** -aztarrenak direla esango dugu), eraikuntza oso horretan parte hartzen duten irudiaren elementu guztiak izendatzeko. Josu Zabaleta

Oso-osorik gauzatzen du, beraz, antzekotasun ideala, **analogia** -desira ororen funtsean dagoen ilusio magikoaren premia asetzeko egokia. Josu Zabaleta

· Errealtasun-efektu hau Mendebaldeko Berpizkunde ondoko irudikapenaren ezaugarria da, gainera, helburu errealista baten mende jarri nahi izan baita beti irudikapen-**analogia** . Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **analogia adierazleak** (4); **analogia bat** (6); **analogia ez da** (3); **analogia hori** (3); **analogia mailak** (3); **baina analogia** (3); **da analogia** (6); **dago analogia** (4); **den analogia** (4); **dira analogia** (3)
> **duten analogiak** (3); **esperientziaren hiru analogiak** (3)
> **analogiaren eragina** (3); **analogiaren lehen** (3)
> **analogiaz sorturiko** (4)

---

analogiko **1** *izond* analogian funtsatzen dena, analogiari dagokiona.

Forma **analogikoa** da, beste forma baten edo askoren erara eta erregela jakin baten arabera sortua dagoen forma. Isabel Arrigain

Analogikoa (metaforikoa). Askoren artean

Etorkizunean arazoa areagotu egingo omen da, esaterako 2004rako aurreikusi den telebista **analogikoaren** ordez, digitala sartzen denean aldaketa handia etorriko baita). Iñaki Heras

Tuterako lantegiak hodi **analogikoa** duten telebistak egiten ditu. Berria - Ekonomia

Itelazpi iazko urrian sortu zuten, telebista nahiz irratiaren sare digital eta **analogikoa** kudeatzeko asmoz. Berria - Euskal Herria

Argazkigintza **analogikoa** bertan behera utzi du Nikonek, eta digitalean sartu da buru-belarri. Berria - Gaiak

Gertaera **analogiko** oro hiru pertsonarekiko drama bat da: [...]. Isabel Arrigain

Teoria fonologikoaren oinarri nagusietako bat zeregin horretarako prozedura **analogikoak** ziren. Itziar Laka

Berrikuntza **analogikoak** , interpretazio aldaketen sintomak. Isabel Arrigain

Hala ere, zilegi litzaidake adigai hauek, dena dela, askatasunari eta bere subjektuari aplikatzea, beti ere esperientziaren objektuen arabera dabilen erabilera praktikoari dagokionez, erabilera teoretikoan duten esanahi **analogikoari** jarraiki, Bere oinarrian erromantikoen beste ideia nagusi bat kokatzen zen, haiek munduarekiko zeukaten ulermen **analogikoa** : mundua batasun bat zela, zioten, eta batasun bezala ulertu beharra zegoela. Ibon Uribarri

Multzo bat ezaugarritzea baimentzen duten harremanen mugapena (harreman numerikoak edo logikoak izan daitezke; eta baita harreman funtzionalak, kausalak, **analogikoak** ; izan daiteke adierazlearen eta adieraziaren arteko harremana). Xabier Arregi

Irudikapen **analogikoaren** akatsak. Josu Zabaleta

Gehienean oso **analogikoak** diren irudiak ikusteko dugun ohitura ongi errotuak analogiaren fenomenoa gaizki hautematera eramaten gaitu askotan. Josu Zabaleta

Irudikapen oro konbentziozkoa da, baita **analogikoena** ere (argazkia, adibidez, alda baitaiteke parametro optiko batzuk -objektiboak, filtroak- edo parametro kimiko batzuk -pelikula- aldatuz). Josu Zabaleta

2 ***elektronika analogiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

Elektronika analogikoa tentsioa, korronte elektrikoa eta karga elektriko aldagaiak modu jarraituan hartzen dituen sistema elektronikoen multzoari deritzo, aldagai horiek modu diskretuan hartzen dituen elektronika digitalaren aldean. ETC-entziklopedia

Pentsa daitekeen moduan, askotarikoa da taldearen musika proposamena: big-band latino, pop psikodeliko, rock, cumbia, manbo eta **elektronika analogikoaren** arteko nahasketatzat jo daiteke. ETC-prentsa

Elektronika analogikoak balio jarraituak dituzten magnitudeak erabiltzen ditu, eta elektronika digitalak, berriz, balio diskretuak dituztenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezarritako zehaztapenak bete ahal izateko eta sistemaren funtzionamendu egokia bermatzeko, beharrezkoa da **elektronika analogikoari** loturiko akatsak zuzentzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hau da **elektronika analogikoan** gehien erabiltzen den zona eta hemen aztertuko duguna. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *erloju analogiko* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Erloju digitala ordua zenbakien bidez adierazten duena da, orratzen bidez egiten duen **erloju analogikoa** ez bezala. ETC-entziklopedia

Hormako **erloju analogiko** bati begiratuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Denbora neurtzeko neurri-unitateak: **erloju analogikoan** eta digitalean zer ordu den jakitea. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *grabazio analogiko* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

LP disko bat (ingelesezko Long playtik datorren sigla) edo iraupen luzeko disko bat tamaina handiko binilozko disko bat da, 12 hatzbetekoa (30,5 zentimetro), non, formatu soinuaren **grabazio analogikoan**, gehienez ere 20 eta 25 minutu erregistra daitezkeen alde bakoitzetik. ETC-entziklopedia

Antzinako jazz aire bat, orratzarekin jarria edo **grabazio analogiko** baten arrasto zikin-garratzak mantentzen dituena. ETC-literatura, saiakera

Zenbait ahots plazaratu dira **grabazio analogikoaren** alde azkenaldian. ETC-prentsa

Kontzertuetan eginiko **grabazio analogikoekin** osatu zuten diskoa. ETC-prentsa

Grabazio analogikoa Steve Albinirekin, hiru musikariak estudioan aldi berean, espaziorik gabeko sekuentziazioa, nazioarteko kontratua (Roadrunner Records), Nirvanaren itzala... ETC-prentsa

Grabazio analogiko bikainenak ere sartzen du distortsioa, nahiz txikia izan. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *itzaltze analogiko* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Itzaltze analogikoa deitzen zaio telebistetan analogikoan emititzeari eten zenean digitalean emititzen hasteko. **Itzaltze analogikoak** aldaketa handia suposatu zuen eta inpaktu handia suposatu zuen gizartean eta ekonomian, baina batez ere teknologia berrien garapenean eragina izan zuen. ETC-entziklopedia

Erriberan, gainera, ekainaren 30etik aurrera ez da kate hori ikusiko, orduan izanen baita eremu horretan **itzaltze analogikoa**. ETC-prentsa

Areago, Nafarroan abenduaren 10eko **itzaltze analogikoagatik** BECeko finala ezingo badut, orain lau urte bezala, ETBren bidez ikusi. ETC-prentsa

Araban **itzaltze analogikoa** izango den 23 herrietako etxeen %83k jada egokitu dituzte antenak lurreko telebista digitala ikusteko. ETC-prentsa

5. hedabidegabekeria: Nafarroan **itzaltze analogikoak** eskaintza digital publikotik kanpo utzi du ETB. ETC-prentsa

Itzaltze analogikoa azkartu ahala, aferaren osagai eta eztabaidak konplikatuz doaz, ulertzeko gero eta zailagoa den eran. ETC-prentsa

Batzuei irakurriz ematen du " **itzaltze analogikoaren** " eskemarekin dabiltzala, halako batean tipping point hori gertatuko dela, eta hortik aurrera digitala bakarrik izango dela edizioa. ETC-literatura, saiakera

6 *seinale analogiko* *(corpusean ez dago; ETCn **204** agerraldi)*

Seinale analogikoa fenomeno elektromagnetiko batek eragindako seinale mota bat da. ETC-entziklopedia

Noiz desagertuko da **seinale analogikoa**? Egun bi seinale motak eskaintzen diren arren, **seinale analogikoa** desagertu egingo da. ETC-prentsa

Gaur itzaliko dute Nafarroa osoan telebistaren **seinale analogikoa**. ETC-prentsa

Lau izango dira, halere, abendutik aurrera **seinale analogikoa** jasotzen jarraituko duten herriak Nafarroan; Leitza, Goizueta, Areso eta Arano. ETC-prentsa

Irudia manipulatzeko orduan ere, aurrerantzean, orde Goiena Telebista digitalerako prestatzen ari da, baina oraindik Euskal Herriko etxe gehienetan **seinale analogikoa** ikusten da. ETC-prentsa

Lehengo **seinale analogikoarekin** ez bezala, seinale digitala ez da erdipurdi ikusten; jasotzen da edo ez. ETC-prentsa

Zeren Jaizkibeleko hedagailuaren **seinale analogikoa** gelditua baita. ETC-prentsa

2015eko abenduaren 31n telebista seinalea aldatuko da Mexikon, egungo **seinale analogikoa** digital bihurtuko baita. ETC-prentsa

Seinale analogikoa hainbat hilabetez mantendu zuten, erabat itzali aurretik. ETC-prentsa

Sistema horretan, **seinale analogikoaren** laginketa egiten da, hau da, bere maila edo nibela aldiro (periodikoki) neurtzen da, eta lortutako lagina, neurturiko mailaren proportzionala den zenbaki bitar bihurtzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zirkuituetan bi seinale-mota erabiltzen dira: **seinale analogikoak** edo seinale digitalak; eta hortik sortzen da zirkuituen sailkapen hau, zirkuituak prozesatzen dituen seinaleen arabera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edozein modutara, sistema analogikoaren abantaila da, **seinale analogikoak** zarata-maila handia izan arren, seinalea hargailura iritsiko dela interferentzia eta guzti. ETC-zientzia, zuzenbidea

Seinale analogiko bat zera da: une jakin batean, definizio-eremu baten barruan dauden infinitu baliotako edozein har dezakeen magnitudea duen seinalea. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **analogikoa da** (3)

---

analogikoki *adlag* era analogikoan.

Gaur egun berton ere, eguneroko hitz egiteko moduan, irudi bat errealista dela esaten denean, errealitatea analogiaren ideal erlatibo batera (argazkiak betetzen du ideal hori) hurbilduz **analogikoki** irudikatzen duela nahi da esan. Josu Zabaleta

Formek irauten dute, etengabe **analogikoki** berrosatuak gertatzen direlako; hitz bat batera sintagma gisa eta banako gisa ulertuko da eta iraungo du hizkuntzan, bere elementuak aldatzen ez diren artean. Isabel Arrigain

Bere estiloan erantzungo diot, **analogikoki**: [...]. Joseba Sarrionandia

---

analogo *izond/iz* beste zerbaitekin analogia duena.

Gauza jakina da don Kixotek (Quevedok beranduagoko *La hora de todos* bere liburuko pasarte **analogoan** bezala) letren kontra eta armen alde eman zuela auziaren epaia. Juan Garzia

Berrikuntza ez da existitzen, gizakion esperientzia guztiak **analogoak** dira. Karlos Linazasoro

Erabat edo neurri batean **analogoak** diren enuntziatuak sailkapen-koadro batean integratzea. Xabier Arregi

Inoiz, gainera, gerta liteke zientzia mota honetan alegoria bera bi gai **analogoetarako** ere erabiltzea. Xabier Kintana

Tradizioaren adigaia esaterako: fenomeno-multzo bati -guztiak aldi berean jarraituak eta berberak direnak (edo **analogoak** gutxienez)- denborazko estatus berezia ematen ahalegintzen da. Xabier Arregi

Euskarazko bertsioak arraro samar gertatuko dira: batetik, kantuon errima errespetatzeko asmoz, itzulpenak hoskidetasunaren neurrira egokitu ditudalako; bestetik, antzerkia eginez gero, kantuok bere horretan utzi edo euskaraz ezagunak diren **analogoak** erabiltzearen aldekoa naizelako. Xabier Paya

Beraz, arrazoimenaren ideia sentimenaren eskema baten **analogoa** da, baina bereizketa honekin, alegia, adimenaren adigaien aplikazioa arrazoimenaren eskemari ez dela era berean objektua beraren ezagutza (kategoriak beren sentsuzko eskemei aplikatzean gertatzen den legez), baizik adimenaren erabilera ororen batasun sistematikoaren printzipioa edo erregela besterik ez. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **analogoa den** (3)

---

analogon *(corpusean irud/hed soilik)* *iz* biologikoki jatorri desberdinekoa izanagatik, funtzionalki beste izaki baten

antzekoa den izakia.

Mimesia baizik ez duen kontaketa: pertsonaiek ekintzen eta hitzen **analogon** batez osatua, beraz. Josu Zabaleta

Zeinak aurkitzen dituen, oraindik feudalak diren geruzapenen azpian, tankera funtzionaleko harremanak, elkartasun ekonomikoak, gizarte bat aseguratu beharko lukeena bere mendetasunen eta bere elkarrekikotasunen bidez, kolektibitatearen eran, bizitzaren **analogona**. Xabier Arregi

---

anamnesi *(corpusean ez dago; ETCn **134** agerraldi; orobat **anamnesia**) iz* diagnostikoari begira gaixo baten historia klinikoan jasotzen diren datuen multzoa; psikoanalisian, batik bat oroitzapenetan oinarrituta gaixoak berak ematen dituen datuen multzoa; filosofian, Platonek garatutako kontzeptua.

Anamnesi bat?, galdetu du Lynnek. ETC-literatura, saiakera

Ibilaldi honi dagokionez, aste edo hilabete batzuen buruan, denbora hartuz eta bere substantziaz hazten den **anamnesia** kreatzaile baten medioz berbideratuko naiz. ETC-literatura, saiakera

Bere kasuan, haurtzaroko oroitzapen "preziatu eta sakratuak" berreskuratze hura, ate itxia parez pare irekitzen duen **anamnesia** bitxi eta ia miragarri hura, haurtzaroko amnesia hura, paradoxikoki, asaldura zerebral batek eragin zion. ETC-literatura, saiakera

Errenkadan etorri ziren **anamnesia**, galde-erantzunak, eskuztaketak, erradiografiak... ETC-literatura, saiakera

Hots, Platonek lehenik, eta Freudek geroago **anamnesia** deitu izan dutena gertatzen dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Historia klinikoa edo **anamnesia** da azterketa klinikoaren atalik garrantzitsuena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Paziente batzuek **anamnesi** egokirako datuak emango dizkigute, baina, bete askok ezin izango digute daturik eman. ETC-zientzia, zuzenbidea

Anamnesi postmodernistak ez du bururik, errealitatearen baitako eremu zehatzezinak hartzen baititu aintzat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egiten-jakite haren bidez, arazo sozialak konpontzen ziren problema horien kausen **anamnesia** eragiten zuten errituallen bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Prozesu diagnostikoan **anamnesia** da lehenengo urratsa, azterketa fisikoa ETC-zientzia, zuzenbidea

Anamnesia, batzuetan historia klinikoa ere deitua, medikuak pazienteari edo honen inguruko norbaiti egindako Elkarrizketa (argipena) elkarrizketa da. Honen bidez, sintomak antzematen saiatuko da, eritasun gaixotasunaren zantzuen bila. ETC-entziklopedia

Filosofian, **anamnesia** Platonek garatutako kontzeptua da, bere ideien teoriaren baitan, zeinaren arabera pertsonen ezagutza bizitzaren aurretik arimak "gogoratu" egiten dituen ideia eta kontzeptuetan oinarritzen den. ETC-entziklopedia

Anamnesia: historia klinikoa, beste diagnostikoak, erradiografiak, gasometriak, pazientearen azalpenak bere ondoezari buruz. ETC-entziklopedia

Hilekoaren **anamnesi** osoa egitea beharrezkoa da, hilekoaren hasierako adina, hilekoaren fluxuaren iraupena eta kantitatea, hilekoen arteko denbora, aldakortasuna eta hilekoen eta sintomen arteko erlazioa barne. ETC-entziklopedia

---

anamnesia *(orobat **anamnesis**) iz* medikuntzan, eriaren beraren eta familiaren aurrekari patologikoen datuen multzoa.

Dena dela, **anamnesia** -hots, agure xaharraren susmoak- kontuan harturik, zuhurgabekeria izango zen azukre hura horrela itsu-itsuan kontsumitzea, baita soil-soilik dastatzea ere. Juan Garzia

Ibilaldi honi dagokionez, aste edo hilabete batzuen buruan, denbora hartuz eta bere substantziaz hazten den **anamnesia** kreatzaile baten medioz berbideratuko naiz: kilometroen ordez idazlerroak kurrituko ditut, perpausak ezin moldatuz, ideiak iheska doazkidala, non ez zaizkidan burutik behera burrustan heldu. Piarres Aintziart

Bruneren ildoa landu nahi izan du (Narrative and paradigmatic modes of thought) **anamnesis** eta terapiaz bide sortzaileak eskainiz. Berria - Kultura

---

anamnesiko *izond* anamnesiak joa.

'Bai,' diot, eta gogoan dut Jairo Jaramillo, **anamnesikoa**, aurpegiak ezagutu ezin zituena, aurpegiei begira konortea ere galtzen zuena. Joseba Sarrionandia

---

anamnesiko *izond* anamnesiak joa.

'Bai,' diot, eta gogoan dut Jairo Jaramillo, **anamnesikoa**, aurpegiak ezagutu ezin zituena, aurpegiei begira konortea ere galtzen zuena. Joseba Sarrionandia

---

anana *(orobat **ananas**) iz* pinuaren eta beste zenbait zuhaitzen fruitua. ik**piña**.

Klimatologiaren eraginez, fruituak gehiago heldu baitira, eta aurtengo aroma fruitu helduari dagokiona da (udare, arbeletxeko, banana eta **ananari**. Berria - Euskal Herria

Lehen hektarea bakoitzeko 9.000 **anana** hazten baziren, orain, 30.000 hazten ditugu. Berria - Gaiak

Perun, azaroan bakarrik ekoizten zuten **anana** gure arbasoek, baina, orain, **anana** urte osoan haztea lortu dugu. Berria - Gaiak

Marrubiak, limoiak eta **ananak** isuritako usaina nabari zen itsasontziko bizkarrean. Lopez de Arana

Flitwick irakasleak banan-banan deitu zien gelara, ikusteko ea gai ziren **anana** bati dantza eginarazteko mahai gainean. Iñaki Mendiguren

Hantxe jan genuen **anana** erdibana, burua aurrerantz makurturik, zuku guztia txirrian baitzerion frutari, eta ondoren beheko uharrien artean nahi izan genituen gure atzamar azukrez likistuak garbitu. Joxe Austin Arrieta

Yogur naturalak esne kondentsatuan nahasi, limoi ur doi bat gaineratu eta eragin, eta azkenik melokotoi eta **anana** zatiak erantsi. Patxi Zubizarreta

Arrain eta **anana**-usaina. Joxe Austin Arrieta

Bainan hala-ta ere, hori badakite egiten: bost-pa-sei leguma mota, gero fruituak berak jiten dira, **ananas** salbu; hori lantzen dute. Menane Oxandabaratz

---

ananas ik **anana**.

---

anaritmetismo *iz* numeroen hizkuntza irakurtzeko gaitasunik eza.

Analfabetismoa dagoen bezala, **anaritmetismoaz** ere mintzatu beharko genuke, nire kastako jendeak bizi duen drama berezia aipatzeko. Joxan Elosegi

---

anarkia 1 *iz* aginpiderik ezak sortzen duen egoera nahasia; estatu batean gorbernu egituraren gabetasun erabatekoa.

Nola hazi seme-alabak inguruan **anarkia** besterik ez dagoenean? Oskar Arana

Hristo Stoitxkoven garaiko **anarkia** ordena da gaur egun. Berria - Kirola

Idazle-kastaren kaosa, **anarkia**, anabasa ere adierazten ditu letren errepublika espresioak. Anjel Lertxundi

Herrialde demokratiko batean ezin dugu **anarkia** onartu. Berria - Harian

Herrialdea **anarkia** politikoan hondoratzen ari da, gero eta gehiago. Berria - Mundua

Iparralde hontan ofizialtarzünik ez beitü gure hizkuntza nazionalak, **anarkia** dügü horren egarteko arauetan. Herria

Bakarrik, irizpide orokorrenak eta hutsegite larrienak aipatuko ditut, libertate zaletasun gaizki ulertuak erakarririk **anarkia** ezarri nahi dutenak desengainatu nahi ditudalako. Juan Martin Elexpuru

Hugo Kapet errege koroatu zutenean, gauza aldatu zen, koroarekin batutako feudo handi batek **anarkia** geldiarazi zuelako. Iñaki Iñurrieta

Mendebaldeko Kristandadea berriro **anarkian** erori zen Karlomagnoren Erromatar Inperio berri abortatuaren porrotaren ondoren. Iñaki Mendiguren

Anarkiak gogoan du Gizonaren gurtza, baina norbanakoari atxikitzen dio, zehazki. Josu Zabaleta

Despotismoaren kiratsa **anarkiaren** izurria baino nahiago duen nazio bateko burua. Xabier Olarra

Hugo Kapet errege koroatu zutenean, hirugarren dinastiaren hasieran, aldaketa handiagoa izan zen, Estatua **anarkiatik** gobernu-era batera pasatu zelako. Iñaki Iñurrieta

Txina, berriz, iraultzaren bidez, **anarkiatik** bere antitesira igaroa zen erregimen komunista baten kontrol zorrotzaren forman. Iñaki Mendiguren

Anarkia hutsa bidegurutzean. Ramuntxo Etxeberri

Coetzeek Hegoafrika berriko bizimoduaz duen iritzia, bertan **anarkia** basati batek ordezkatu baitu lehengo tirania basatia. Berria - Kultura

Dirudienez, **anarkia** feudaleko garaietan printzeak eta lurjabeak pobre samarrak ziren, eta beren menpekoak zigortuz eta krimenetik ere etekinak atereaz handitzen zituzten beren ogasunak. laster legerik zuhurrenek ere ezin izan zuten berrezarri hilzorian zegoen errepublika batek, **anarkia** orokorrak, gobernu militarrak, inperio gogorrak, despotismo hantustetsuak, monarkia ahulak, gorte ergel, inozo eta superstiziotsu batek, hurrenez hurren abaildu zutena. Juan Martin Elexpuru

Herrialdea **anarkia** politikoan hondoratzen ari da, gero eta gehiago. Berria - Mundua

"Ez genion egoerari amaiera eman eta oso garesti ordaindu dugu, horrek **anarkia** giroa ezarri baitzuen", zioen gobernadore ohiak. Berria - Mundua

Edozein hiritarren heriotza beharrezko bihurtzen da, beraz, nazioak bere askatasuna berreskuratzen edo galtzen duenean; edo **anarkia** garaian, legeen lekua bidegabekeriek eurek hartzen dutenean. Juan Martin Elexpuru

Ahal duten neurrian, gizon-emakume guztiek, funtzionarioak izan ala ez, **anarkia**-bolada honi aurre egin behar diote. Lopez de Arana

2 irud/hed

Kantxako **anarkia** erakustaldiaren aurrean Joxean Tolosaren eskuineko eskua odoletan irudikatu nuen, Retegi II.ari irabazitako final epikoan. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gora anarkia** (4)

---

anarkialdi *iz* anarkia bolada.

1707tik 150 urte geroagora, Akbar eta Aurangzeb-en ondorengo bat haien tronuan eserita zegoen oraindik, eta askoz luzeago ere iraun ahal izango zuen 1857ko matxinatuek ez balute txotxongilo gizagaixo hura behartu izan bere gogoaren kontra itsasoz bestaldeko raja baten aurkako beren matxinada bedeinkatzera, raja hark, **anarkialdi** baten ondoren, berak artean sinbolizatzen zuen baina aspaldi desagerturiko raja mogola ordeztua zuelarik. Iñaki Mendiguren

---

anarkiko *iz* anarkiarena, edo anarkiari dagokiona.

Einsteinek ilea orraztu zuen -txima **anarkiko** haiek astintzeari horrela esan badakioke-, atzera eramanez. ohartzen naiz, halaber, zain **anarkiko** horrek badituela bere gaitzak eta makurrak ere, hala nola estetizismoaren arriskua, fribolizaziorako joera, antolamendurako hozkia, eta ekintzarako antzutasuna. Fernando Morillo

Ez dut aise konprenitzen zenbaiten seta, nerabezaroari eta gaztaroari giza denboraren garairik **anarkiko** eta aurreiritzi gabeenak irizteko. Aingeru Epaltza

Italiako autopistetan ezin zen edozein lekutan kreditu-txartelarekin ordaindu Norarekin azken aldiz egon nintzenean, leku batzuetan bai eta beste batzuetan ez, **anarkikoak** dira hemen, Italia munduko potentzia handienetako bat den arren. Mikel Hernandez Abaitua

Hirien hazkunde **anarkikoa** -okerreko garapenaren adierazle nagusietako bat-, azpienpleguaren zabalkundearekin batera gertatu ohi da. Koro Navarro

Hasierako erronka helenoek aurrean izan zuten interregno baten barbarotasun **anarkiko** berbera izan zen, baina erantzuna desberdina izan zen, hau da, eliz erakunde ekumeniko bat sortzea hildebrandotar aitasantutzaren forman. Iñaki Mendiguren

Zera pentsatu nuen momentu hartan, minbizia zela, zelulen garapen **anarkikoak** joa nintzela, ez bainintzen neure gorputzaren diapasoiaren arabera bizi. Joxan Elosegi

Etxeberriak, berak batez ere, ezin zuen portaera hura eraman, bera beste modu batekoa zelako erabat, oso **anarkikoa**. Bernardo Atxaga

Ile bustitik sorbaldan behera tantak jausi dira azalean errekatxo **anarkikoak** marraztuz. Sonia Gonzalez

Errepidea gainezkatzen zuten motor, kotxe nahiz autobusak era **anarkikoan** zebiltzan, ke handia botaz eta semaforoak errespetatu gabe. Jon Arretxe

Beraien ikasleentzat basamortuko askatasun **anarkikoa** subiranoen mesedetan sakrifikatu beharraren garraztasuna gozatzen zuen Hilm ospea merke eskura daiteke keinu dotore edo mot soinutsu baten bidez... egokiak batez ere milieu **anarkiko** batean, arabiar gizartea bezalakoetan, non indarkeriazko ekintza orok erruki gabe errepresalia sortarazten zuen... Iñaki Mendiguren

---

anarkikoki *adlag* era anarkikoan.

Hori bai, **anarkikoki** eta idazleen korporatibismo eta zirimoletatik urrun. Jose Angel Irigaray

---

anarkismo **1** *iz* joera politikoa, helburutzat duena Estatua suntsitzea eta gizabanakoa hertsa dezakeen edozein aginte ezabatzea.

Liburuaren edukiak Proudhon, Bakunin, Tolstoi, Kropotkin, Malatesta eta **anarkismoaren** beste teoriko handi guztien pentsaera jasotzen zuen arren, niri ideia lauso bat geratu zitzaidan buruan, lauso baina argia, zehazgabe bezain indartsua: **anarkismoa** zen arazo guztientzako askabidea, **anarkismoa** izango zen aurrerantzean nire goiburu eta ideologia. Xabier Mendiguren Elizegi

Unamuno-ren bere moduko sozialismo edo **anarkismoaren** ideia inkarnatzen dute. Joxe Azurmendi

Ez dakit jakingo duzun, **anarkismoaren** koloreak dira. Bernardo Atxaga

Liburua orrikatu eta gainbegiratuta, garbi zegoen lan politiko bat zela hura, **anarkismoaren** proselitismoa egiten zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Norabide berean, eta arrazoi berdinengatik, demokraziaren, sozialismoaren, **anarkismoaren** (komunismoaren) ukoa eta arbuioa datoz. Joxe Azurmendi

Anarkismoaren, erradikalismoaren, monarkiaren, diktaduraren beraren miresle agertzen da idazlea. Berria - Kultura

Ez duela bere buruagatik esaten anarkista dela, baizik-eta, izatekotan ere, **anarkismoarekin** gogaide. Iñaki Segurola

Anarkismo hutsa zen bazterretan karraskan hedatzen eta nagusitzen ari, hain ziren nahasmenduak ugari, hala nola jende tirokatze, eliza eta komentu erretze eta horrelako abrekeria edo basakeria frango. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Sinpatian eta errukian oinarritutako, baina inolako irtenbide praktikorik ez zuen **anarkismo** espiritual baterantz ari zen jotzen. Josu Zabaleta

2 ***anarkismo epistemologiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Anarkismo epistemologikoa Paul Feyerabend zientziaren filosofo austriarraren eskutik sortutako teoria epistemologiko bat da, zeinak defendatzen baitu ez dagoela arau metodologiko erabilgarri eta salbuespen gabekorik zientziaren garapena eta jakinduriaren hazkundea gobernatzen duenik. ETC-entziklopedia

Anarkismo epistemologikoa eszeptizismoaren eta anarkismo politikoaren (erlijiosoaren) bestelakoa da. ETC-literatura, saiakera

Feyerabend (1924-1994) azpimarratu behar dugu, kontuan izanik bere **anarkismo epistemologikoa** garai hartako garrantzi handiko tesi zirikatzaileak ekarri zizkiola filosofiari, hemen aurkezten dugun Feyerabenden artikuluaren baitan nabarmen agertzen den legez. ETC-literatura, saiakera

---

anarkista 1 *izond/iz* anarkismoaren aldekoa; arnakismoan oinarritzen den alderdi bateko kidea.

Hots -gehitzen dut nik hemen-, hizkuntza batzuk gutxitu eta ezereztu, eta beste batzuk -edo "bat"- askotu eta gizendu; ideal **anarkistatik** gero-eta hurbilago, nonbait. Iñaki Segurola

Neure sinesmen **anarkista** horrek eraman ninduen ordea eztabaida lotsagarriagoetara ere: Jainkoa, nagusiak eta estatua ukatzeaz gainera, ukatu beharrekoa nuen aberria ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Travenen jantziak soinean zituela ibiltzen omen zen haren esaldi famatuenak errepikatuz, ideario **anarkistaren** goiburuak aldarrikatuz. Joxean Agirre

Liburu **anarkisten** azoka egingo dute Bilbon asteburuan. Berria - Kultura

Han ezagutu zuen borroka **anarkista**, eta horren alde gauza ugari egin ditu bere bizitzan; tartean, bankuak lapurtzea eta dokumentuak faltsutzea. Berria - Kultura

Spies, Parsons, Fielden, Sachwab, Neebe, Linng, Fischer eta Engel langileen lider **anarkistei** egotzi zieten gertatutakoaren errua, eta atxilotu, epaitu eta zigortu egin zituzten. Berria - Ekonomia

1974ko martxoaren 2an exekutatu zituen Francoren erregimenak Salvador Puig Antich katalan **anarkista** gaztea eta Heinz Chez delako bat. Berria - Kultura

Egun batez Leman deritzan aintziraren leihorretan zoalarik Italiar **anarkista** batek zauritu zuen ganibet ukaldi batez eta hortarik hil zen. Herria

Marinelak asturiar **anarkistak** ziren. Edorta Jimenez

Frantziako Armadak ez diola "Gobernu **anarkista** eta faxista bati" aurrera egiten utziko iragarri zuen Jacques Chirac Frantziako presidenteak herenegun. Berria - Mundua

Asko talde **anarkistetakoak** ziren, komunistak, sozialistak... *Avance Marino* izeneko talde sindikal **anarkistari** jarraiki, armak eskuetan, Donostiako altxamendu faxista itzaltzeko ahaleginean hartu zuen parte gerra zibilean. Jon Maia

Ez dakit zenbat iraun zidan sukarraldi **anarkistak**: urtebete, bi gehienez ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Nahi nuke jakin zenbat ikasle **anarkista** ohi, jendarme bilakatu diren. Piarres Aintziart

Europako preso politiko guziak, español **anarkistak**, judu hungariarrak, komunistak, gaullista frantsesak nahasiak dira, nahitara, elgar ezezta dezaten. Marzel Etxehandi

Martaren gelako gaumahaitxoan Buenaventura Durruti **anarkistaren** bizitzari buruzko liburu bat ere bazegoen, pasarte batzuk azpimarratuak zituena. Harkaitz Cano

Nicola Sacco eta Bartolomeo Vanzetti **anarkistak** 1927an exekutatu izanak berebiziko eragina izan zuen idazle estatubatuar honengan eta bien barkamena lortzeko alferrikako ahaleginetan gogotik aritu zen. Lopez de Arana

Baina lasai, ez ikaratu, ez pentsatu ni **anarkista** naizenik. Bernardo Atxaga

Anarkista bat izan badaiteke nazi lehendabizi eta demokrata jatorra gero, zergatik ez torturatua torturatzaile? Xabier Montoia

Nik niotsen ez nintzela **anarkista**, ez nituela metodo horiek onartzen, errepublikarra nintzela. Koldo Izagirre

Bere andreak adarrak jartzen zizkiola **anarkista** batekin, eta **anarkista** harengatik zegoela orain zegoen moduan. Koldo Izagirre

Baina ez zen suge terrorifikoa, ez; ganora handirik gabeko sugea zen, apur bat **anarkista**. Unai Elorriaga

Nolabait ere, tiroak galaraztea izan zen gerra denboran egitea tokatu zitzaion gauzarik heroikoena: fabrika bati fuel-oil depositua tirokatuz su eman nahi zion **anarkista** bati aurre egitea. Ramon Saizarbitoria

Udaletan zerbitzu bereziak jarri zituzten horretarako, baina Pedroren herriraino ez zen horrelako zerbitzurik iristen, ez sozialistenak, ez komunistenak, ez **anarkistenak**. Jon Maia

Anarkistek herriari armak ematea eta denak Sollubeko frontera joatea proposatzen zuten. Edorta Jimenez

Hortxe baitira Gerra Zibilean legearen alde armak eskuetan ekin zioten sozialistak, **anarkistak** eta komunistak, denak ere antifaxista porrokatuak. Edorta Jimenez

Anarkistak aldiz pluralistagoak dira, enpiristagoak, eta mundua eta sentimenduak bezain eroak. Markos Zapiain

Anarkista ote zen galdetu izan du batek baino gehiagok Nemo kapitainaren bandera beltzari begira. Karlos Zabala

Ez zen ageri ez komunista ez **anarkistarik** abadearen erresuma suntsitzeko asmoarekin. Joseba Sarrionandia

2 (izenondoekin)

Sardinia: Decimomannu herrian Esso petrolio konpainiaren gasolindegiaren kontrako erasoa bere gain hartu zuen **Anarkista** Intsurrekzionalistak erakundeak. Berria - Mundua

Anarkista primarioak, Nietzsche delakoaz mintzatuko direnak, Platon irakurturik gabe, ezen entzuna dut haren ideiak ezin ulertuak direla honenak jakin ezean. Piarres Aintziart

Adiskideei bidalitako kartak zeuden: ofizialei, goi-goiko pertsonaiei, **anarkista** ezagunei, idazle susmagarriei, eta, horrez gain, oso argazki galgarriak. Matías Múgica

Anarkista erromantiko bat bertso humanitario barregarriak idaztera bultzatzen duen ideia berberak bultzatzen du dinamitatzaile bat bonba jartzera. Josu Zabaleta

Frankisten gerra kontseilu batek hiltzera zigortu zuen **anarkista** kataluniarra, polizia baten hilketa leporatuta. Berria - Mundua

Anarkista fededun bat bere ideien gezurpean harrapatzea ez da gauza zaila. Iñaki Segurola

Bera da, Michele Angiolillo, **anarkista** odolgiroa, Corpus Christi eguneko atentatuaren egileetariko bat, Bartzelonan Giuseppe Santo legez ezaguna. Koldo Izagirre

Halakoak direlako **anarkistak** gehienetan, dispersoak. Unai Elorriaga

Hor barrenaldean agertu den Reclus jaun geografo hori **anarkista** seinalatua izan zen eta Kropotkin printzearen adiskidea, besteak beste. Iñaki Segurola

Bere denboran Reclus asko irakurri eta 90 urtetik gora doan Manuel Rdez. de Mendarozketak, gaztetatik Federazio **Anarkista** Iberikoan egonak. Iñaki Segurola

3 (hitz elkartuetan)

Zer **anarkista** mota ginateke / gizartea kritikatuko ez bagenu? Pako Aristi

Horrelako **anarkista**-taldeari aise entregatuko ziotela obispoa. Inazio Mujika Iraola

Chicagoko 1886ko maiatzaren 4ko grebaren garaian hilketaz akusatutako **anarkista** talde bati 1893an barkatu zionean egin zen ospetsu. Xabier Olarra

Komentu erretzen harrapatu duten **anarkista** burua tente doa pelotoiari bide egiten. Iñigo Aranbarri

4 irud/hed

Txerri **anarkista** iraultzaile baten ideala. Lopez de Arana

Esan egin zituen berak, gustura zegoelako, eta xehetasunak ere eman zituen, hala nola, Mercedesen soinekoarena, eskaileretako euli **anarkistarena** edo hirugarren etxean topatu zuen gizonaren sudur kariñosoarena. Unai Elorriaga

5 ***feminismo anarkista*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Anarkofeminismoa edo **feminismo anarkista** ideologia eta mugimendu politiko bat da, non feminismoa anarkismoarekin lotzen den. ETC-entziklopedia

6 ***komunismo anarkista*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Piotr Kropotkin **komunismo anarkistaren** teoriko garrantzitsuena bezala hartzen da. Honek adierazten zuen elkarren artean kooperatzea konpetitzea baino onuragarriagoa zela. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anarkista bat (5); **anarkista hura** (3); **anarkista izan** (3); **anarkista naiz** (3); **anarkista zen** (3); **edo anarkista** (3); **ni anarkista** (5); **talde anarkista** (3); **zen anarkista** (3); **zion anarkista** (3)

anarkistak eta komunistak (3)

komunistek eta anarkistek (3)

---

anarko 1 *izond/iz adkor* anarkista.

Niretzat, balioen konflikto nahasi batean murgilduak bizi gara: gizarte erditradizional, erdimoderno, kontserbakoi, **anarko**, erlijioso, pagano lardaska batean, ez mundu bateko ez besteko, trantsizio krisietan ohi den eran. Joxe Azurmendi

Militarkume bat, azken batez, bere planta **anarkoak** eta guzti! Aingeru Epaltza

Askotarikoa da beren itxura, **anarkoarena** egitea ere gustuko dute, baina behar bat dute barne-muinetan: epaitu beharra daukate, prozesua dute amets. Markos Zapiain

Disidenteek, asaldatzaileek, iraultzaileek, **anarkoek** eta bihurriek ordaintzen dute garestien beren ausardia, baina haiek aldatzen dute mundua, haiek zalantzan jartzen "betiko egiak", haiek urratzen bide berriak. Luis Elberdin

Errebelde bat al nintzen ni, **anarko** usteko hura, horien guztien aurrean? Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan)

Soluzioa, beraz, jende jaun agintariaren indibidualismo eta despotismo diziplinatuan dago, politika **anarko**-aristokrata arras berri batean, "que en España se reduciría a un mínimo de ley y a un máximo de autoridad". Joxe Azurmendi

Russell, **anarko**-sindikalista, ez zen inoiz komunista izan. Berria - Harian

Ni super-**anarkoa** naiz. Sonia Gonzalez

---

anarkoide *izond* anarkismorako joera duena.

Zalantza guztien gainetik eta definizio guztien azpitik, konturatzen naiz jarrera batzuek bere hartan segitzen dutela beti, jarrera **anarkoideak** alegia, neure burua akratatzat jo nuen garaikoak. Xabier Mendiguren Elizegi

---

anarkosindikalismo *iz* anarkismoaren adarra, bere borroka batez ere sindikatoetan oinarritzen duena.

Vladimir, 68ko maiatzaren garaiaz gero, ezkerreko talde eta joera guztietatik pasatua zen: stalinismoz zipriztindutako marxismo-leninismotik trotskismora eta (berehala) maoismora; **anarkosindikalismotik** sozialismo kristaura eta askapenaren teologiara; erradikalismotik humanismora eta atzera buelta (ahaztu gabe, besteak beste, hiri-gerrillako komandoak, Marx-en Kapitala-ren irakurketarako langile-taldeen gidaritza, mota askotako talde ekologista, antinuklear eta antimilitaristak, eta materialismo historikoari buruzko mintegi fantasma hura). Iban Zaldua

---

anarkosindikalista *(corpusean ez dago; ETCn **69** agerraldi) izond* anarkosindikalismoaren jarraitzailea; anarkosindikalismoari dagokiona.

Alderdikideek "**anarkosindikalista**", "errusiar", "masa-ekintzaile" eta beste deitu zioten. ETC-literatura, saiakera

Halako batean, berrehun polizia azaldu ziren komite **anarkosindikalista** baten esku zegoen Katalunia plazako Telefonicara, hartaz jabetzeko asmo argiaz. ETC-literatura, saiakera

-"Napoli" deitzen diete, edo marokoar, faxista, probokatzaile, **anarkosindikalista**. ETC-literatura, saiakera

Juan Gomez Casas **anarkosindikalista** eta CNTko kide izandakoa hil da, Madrilen. ETC-prentsa

Bon, ekainean **anarkosindikalista** bat ikusi nuen zaldikoaren gisa, eta, antza, Alde Ilunari dagokion Baluarte ondoan Hill Street Blues jurasikoa nahiago dute oraindik. ETC-prentsa

Erakunde **anarkosindikalistak** Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan egin zituen mobilizazioak. ETC-prentsa

Gertatzen dena da, kasik ikusezina dela Duczysnkaren irudia, 1936ko Espainiako **anarkosindikalistak** ziren moduan, edota gaur egun Donbass eta Kurdistanen diren bezala. ETC-prentsa

Ildo **anarkosindikalisten** arteko lehiak harrapatu gintuen, hainbat talde autonomo gainbeheran zen, eta giroa zaila zen. ETC-prentsa

Durruti, Ascaso, Jover, García Oliver, Aurelio Fernández eta beste **anarkosindikalista** batzuk lideratu zituzten indar herrikoiak eta altxamendua ixilarazita zegoela uste izan zuten. ETC-entziklopedia

CNT edo Lanaren Konfederazio Nazionala Espainiako Estatuan hedatutako sindikatu **anarkosindikalista** da, zehazkiago esatearren sindikatuen konfederazioa, 1910ean Bartzelonan sortua. ETC-entziklopedia

2018ko maiatzaren 11tik 13ra bitartean, erakunde sindikal **anarkosindikalista** eta iraultzaileak elkartu ziren Parman (Italian). ETC-entziklopedia

Normalean **anarkosindikalista** edo sozialista libertario gisa identifikatzen zen. ETC-entziklopedia

---

anarte

1 ***anartean[1]*** *adlag* bitartean.

Nor da hiltzailea? **Anartean** bertze hil bat. Herria

Anartean, Fionn alaitasunezko adierazpenei erantzuten saiatzen zen, ezeroso samar erantzun ere. Joanes Urkixo

Anartean, inkestek -bai AEBetan, bai Erresuma Batuan- inbasioaren aldeko jarreraren berri ematen zuten. Txema Ramirez de la Piscina

Anartean, Zirzek nire lagunak garbitu, olioz igurtzi eta jantzi egin zituen. Juan Kruz Igerabide

McAvoyk zigarro bat piztu zuen hankak irekita eta begiak bere baitan bildurik; **anartean** Cassie so geratu zitzaion. Lopez de Arana

Senarra edateari eman zen **anartean**. Itxaro Borda

2 ***anartean[2]*** *adlag* orduraino, ordu arte.

Kopetilun, zeharo jota, Goia aldera abiatu gara hirurok; nik **anartean** inoiz dastatua ez nuen oinaze lazgarri batek zaurturik. Txillardegi

Idazterakoan, **anartean** ez zeukan arazo baten aitzinean aurkitzen da: ezin du gehiago irakurle ezaguna gogoan hartu gabe idatzi, zernahi gai dela, irakurlearen behako eta iritzia dauzka iltzaturik. Jose Angel Irigaray

Utzidazue **anartean** isiltzen orain kontatu behar nituzkeen xehetasunak. Matías Múgica

3 ***anarteraino*** *adlag* orduraino, ordu arte.

Karta-jokoa finitu eta gero hasi ohi da, jokalariak **anarteraino** adi egon beharraren beharrez. Xabier Montoia

Ez zuen taxu handirik gure alabaren bihotza **anarteraino** hunkitu zuten ikastolakumeekin. Aingeru Epaltza

4 ***anarterainoko*** *izond* orduraino koa, ordu artekoa.

Izan ere, ene **anarterainoko** jokabidearen arrazoina izan zen ezen sinetsirik nengoela Jainkoak libre egin gintuela eta, hargatik, bizitzan libre nahi gintuela, eta amorioan ere libre. Joan Mari Irigoien

naturak erabakitako arauen meneko iruditu zitzaizkidan **anarterainokoak**, begiak zabal murgiltzea edo eztulik egin gabe erretzea beste. Koldo Izagirre

Zurea da orain erabakia -esan zuen Mathildek, ordu arte baino kemen handiagoz, **anarterainoko** jarrera adeitsua ahitzeko arriskuaren abisu emanez. Anjel Lertxundi

---

anartean (esaldiaren hasieran) **1** *adlag* bitartean; orduraino.

Anartean bitxi izanen zait, arratsean, zakua pausaturik, liburuen erdian ene bakardadea kokatzea. Piarres Aintziart

Anartean ama eta andregaia berantetsiak zeuden. Gotzon Garate

Anartean behar ditu ardien aztaparrak artatu, hori baita artzain lanetan nekeena eta zikinena. Michel Oronoz

Anartean heldu zaigu Euskal Herrira delako uhain beltza. Herria

Anartean apez asko hil zen, ohi baino gehiago, urte gogorrak bizi izan baitzituzten. Xipri Arbelbide

Anartean biba zuek, eta segi aintzina!! Herria

Anartean, Ulises Altzinooren etxean barna zihoan; brontzezko ate sarreraren aurrean gelditu zen, eguzkiaren edo ilargiaren distira baitzetorren barrutik, dena brontze, urre eta zilar. Juan Kruz Igerabide

Anartean, Robertok, rutina baten parte balitz bezala, gora eta behera erabiltzen zuen Koldoren lepoa, bere eztula eta arnas estuei entzungor. Harkaitz Cano

Anartean, atean xilintxa joileak xapela kendua zuen. Marzel Etxehandi

Anartean, Egunero utz iezadazu munduko berrien tituluak irakur ditzadan. Itxaro Borda

Anartean, beharrezkoa zen jakitea deportatuak oraino han zeudenentz. Elena Touyarou

Anartean, telebista frantsesean, aditu guztiak, tartean baita sionista batzuk ere, "palestinarrak batu ditzakeen gizona Barguti da" esaten ari ziren, "eta hori ona da, onetsitako mintzaide den neurrian". Iñigo Aranbarri

Anartean, gure eztabaiden %90ek iluminatu koadrila hori izan zuen iturburu. Aingeru Epaltza

2 (esaldiaren barnean)

Gainera, nork daki, beharbada Abel **anartean** etxeratua zen eta aurkituko nituen biak, amoroski, kafe on baten edaten ari, irriz irri. Daniel Landart

Neskaren ahoak mutikoarena irensten zuela ematen zuen, esku irekiak **anartean** atorrak harrotuz gorputzeko zati leun azaleratuen aztaparkatzen zebiltzala, atsegin eta dolorezko intziriak doi-doia gordetzen saiatuz. Itxaro Borda

Utzidazue **anartean** isiltzen orain kontatu behar nituzkeen xehetasunak. Matías Múgica

Noiz arte? **Anartean** behar dira bertzeak lagundu, ez baigara egoiten ahal bi besoak kurutzaturik holako desmasiaren aitzinean. Herria

AEBek, **anartean**, 50 marine igorri dituzte euren enbaxada gerizatzeko. Berria - Mundua

Arratsaldean **anartean**, Kadoran lur muturra mirazka dezakezu, elez agertzen didazun gizonaren aztarnarik kausitzen duzun ala ez ikertzeko. Itxaro Borda

Aste batzuetan isilpean gorde nuen aurkikuntza, **anartean** ginekologo hasi berria baizik ez bainintzen ni. Hasier Etxeberria

Halere Frantziaren eta Nafarroaren arduradunen artean beharko baita akordio bat hango eta hemengo bideak ongi uztartu daitezen, uste dut, **anartean**, zubitik eta Arnegizaharreraino dagoen bide mutur hori diru gutirekin berritzen ahal daitekeela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Jakin ere ez nik, **anartean**, Hannak neba bat zuenik. Joxe Austin Arrieta

Bazkal ondoan, bakoitza bere lanera itzuli zen, edo lo kuluxkaren egitera joan eta, **anartean**, Andre Engraziak iloba eskutik hartu zuen, sukalde xokora eraman zuen, sutondora. Elena Touyarou

Iraken bertan, **anartean**, indarkeriak etengabe dirau. Berria - Mundua

McAvoyk zigarro bat piztu zuen hankak irekita eta begiak bere baitan bildurik; **anartean** Cassie so geratu zitzaion. Lopez de Arana

Lagunak instalatuak ziren **anartean**, nor fardo baten gainean ene gisa, nor zoruan zegoen zelaren baten gainean. Koldo Izagirre

Ez ziren hara helduak gure gizarte hau joa duten gaitz eta izurriteak, bai baitzekiten **anartean** bakean, elkartasunean eta adiskidetasunean bizitzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Bi urteren buruan, Administrazio auzitegiak ontzat eman zuen eraiki baimen hori, baina **anartean** Lemoinek gibelera egina zuen. Herria

Ez dugu deus berririk eta, **anartean**, bahitua izana da ere italiar kasetari emazte bat. Herria

Behin-betiko oldarraldia prestatzekotan, bateria bat jarri zuten gutarrek Klarisen Monastegian, "Los Llanos" deritzon ibarrean (oso ederra omen, baina **anartean** nik sekula ez ikusia!); Ega ibaiak inguratzen duen zelai gune batean, eta aldameneko Beneditarren komentuaren eskuarrean. Txillardegi

Atzerrian, erregina Katalina **anartean** itzalia zen, eta berdin Joanes Albretekoa. Aingeru Epaltza

Marrok **anartean** hogeita bizpahiru urte besterik ez zituen izango, baina denbora gutxian bildua zuen, merezita bildu ere, izengoiti gaiztoa. Juan Kruz Igerabide

Kopetilun, zeharo jota, Goia aldera abiatu gara hirurok; nik **anartean** inoiz dastatua ez nuen oinaze lazgarri batek zaurturik. Txillardegi

Eraso suizidak 62 pertsona zauritu ditu; zenbait ordu lehenago, Defentsa Ministerioko goi arduradun bat tiroka hil zuten; **anartean**, Filipinetako azken soldaduek alde egin dute Iraketik. Berria - Mundua

Idazterakoan, **anartean** ez zeukan arazo baten aitzinean aurkitzen da: ezin du gehiago irakurle ezaguna gogoan hartu gabe idatzi, zernahi gai dela, irakurlearen behako eta iritzia dauzka iltzaturik. Jose Angel Irigaray

Bosgarrenik, **anartean**, 1900ean, Pariseko Erakusketa Unibertsalaren karietara, euskaltzale gorri edo xuri multzo batek asmatu zuen Victor Hugok Populu xarmant eta apur bat basaren fama eman zion Euskal Herriari erakustoki xume baten eskaintzea. Piarres Xarriton

Bordalera joatekotan nintzen, Letreri buruzko ikasketak egiteko, gero nonbait, Euskal Herritik ez urrun omen, erakasle izan beharrez eta **anartean** Unibertsitateko ikasleen omonier, hiru edo lau urtez. Piarres Aintziart

3 (esaldiaren bukaeran)

Senarra edateari eman zen **anartean**. Itxaro Borda

Bere burua bederen ederki zerbitzatua du **anartean**. Herria

Berma ditela ikasten **anartean**. Herria

Obrek 5 hilabete iraunen dute eta Tilul azpiko auto tokia hetsia izanen da **anartean**. Herria

Baina ez dira hortan oraino eta badute zer egin **anartean**. Herria

Zer egin **anartean**? Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anartean bertze** (3); **anartean beste** (5); **anartean ez** (5); **anartean goraintziak** (3); **anartean gure** (3); **anartean izan gure** (3); **anartean jakin** (3); **anartean xantza on** (3); **baina anartean** (7); **bainan anartean** (3)

---

anarteko *izlag/iz* bitartekoa.

Baina **anarteko** epean gogoetaldi bat bermatuko du, ikusteko zein izan litaikeen bere egitekoak antolateka berri horretan, GIP erakunde publikoaren ondoan. Herria

Irakeko giza talde guztien artean finka daitekeen hautsi-mautsi bat litzateke guztiz egokiena, horrek bermatuko bailuke zuzenezkoa eta sinesgarria litzatekeen **anarteko** gobernu baten eraketa. Berria - Mundua

Anarteko horrek soberaxko iraun zuen. Xipri Arbelbide

---

anarteraino *(orobat **anartino** g.er.) adlag* orduraino.

Anarteraino begietara begiratu ere ez zidatenek ninduten gehienik estutzen. Aingeru Epaltza

Biziak **anarteraino** eman ez ziona geroak oparituko ziola uste zukeen, hain segur. Aingeru Epaltza

Migel alde horretatik salbuespena zen: noren semea zen jakinik ere, **anarteraino** inoiz ez zuen grina berezirik agertu kondestablearena ala mariskalarena jokatzeko. Aingeru Epaltza

Ordainez, minigona beltza jantzirik zuen, lantokirako ohiko blue-jeanek **anarteraino** ezkutatutako izter sendo eta beltxaranen abiaburu. Aingeru Epaltza

Oraingo hau niretako zen, ordea, eta horrek **anarteraino** ohartu gabeko ñabardurak eransteaz gain -mazelen tolesdura liraina, ezpainen luzapen xarmanta-, halako irrealtasuna zekarkion egoerari. Aingeru Epaltza

Goiz batez, Johnen kariaz, buruz buru egokitu izan ez bagina, oraino jarrai genezakeen **anarteraino** bezala. Xabier Montoia

Lehiaketa frankok izana zuten nire lanen bat jasotzeko ohorea, baina **anarteraino** epaimahaiek ez jabetu nahi nire begi-bistako merezimenduez. Aingeru Epaltza

Karta-jokoa finitu eta gero hasi ohi da, jokalariak **anarteraino** adi egon beharraren beharrez. Xabier Montoia

Mikatza iruditu zitzaidan; **anarteraino**, urarekin nahasia baizik ez nuen haizu. Aingeru Epaltza

Anartino elkarrekin ibilitakoak banandu egin ginen, txopan Panamako ikurrina zeraman zamako berri batean hartu ninduten, Mediterraneoan ibili nintzen luzaz. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
anarteraino ez (3)

---

anartino ik **anarteraino**.

---

anasazi *iz* Ipar Amerikako indigena etnia.

Goizean, esate baterako, Rubenekin gustura ibili naiz **anasazi** indiarren erruinetan ikusmiran; honetaz eta hartaz hitz egin dugu, gai hutsalak hizpidera ekarririk, baina oso atsegina egin zait haren begirakune lotsatia nirearekin gurutzatzea, edota hura lotsagorritzen ikustea Tomek eskutik kamera kendu, eta esan dionean. Patxi Zubizarreta

---

anastomosi *iz* zainen arteko lotura.

Baso-**anastomosi** delako teknika erabili zuen orduan Jaboulayk, eta gaur ere erabiltzen da teknika hori. Berria - Gaiak

---

anatema 1 *iz* eskumikua, Elizak norbait fededunen elkartasunetik bereiztea.

Nehork erran baleza, Manik eta Pszilianok erran zuten bezala, giza arimak eta aingeruak Jainkoaren substantziatik datozela, hura bera **anatema** izan dadila! Piarres Xarriton

Apenas izaten dugu geuk bereziki heretikoak izan beharrik, geure buruen jabe eta munduan pixka bat eszeptiko izate hutsarekin, heretiko geratzeko, alegia, ezinbestean homosexual, zismatiko, desheredatu, agot, judu-masoniko, ijito buhame eta "munduko madarikatu guztiekin" batera **anateman** erortzeko. Joxe Azurmendi

Betiko gure lege oinarrizkoaren bitartez debekatzen eta eragozten diegu, erran orduko, eskumiku eta **anatema** zigorrez gaztigatzeko arriskupean ez dezaten eman nehongo beren probintzietan, ez hirietan, ez lurraldetan, ez gazteluetan, ez beste lekuetan zezenen edo basabereen lasterketak bezalako ikusgarririk egiteko baimenik. Piarres Xarriton

Espiritu "gogor" honek Erromako Eliza Katolikoan K.o. 1869-70eko Kontzilio Vatikanoaren dekretuetan izan zuen adierazpidea, eta 1907an modernismoaren aurka botatako **anateman**. Iñaki Mendiguren

Biek gaitziritzi zieten Konstantinoplako kontzilioko **anatemei**; biak jazarri zitzaizkien arrianoei, zeinek ukatzen baitzuten Semearen sortze eternala. Juan Garzia

2 *adkor* gaitzespena.

Mende hasieran Gorosabelen *Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa* bilduma ospetsuaren azken liburukia argitaratu zenean, Karmelo Etxegarai, Vascongadas probintzietako kronista ofizialak, gisa honetan zehaztu zuen bertsolaritzaren kontrako **anatema**: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Finkielkrautek, liburuaren azken aldera (151 eta hurr.), Shakespeareren defentsa egiten du populista errusiarren, XIX. mendean, eta deskolonizazio-filosofia eta zurriburri postmodernoaren **anatematik**, XX.ean. Joxe Azurmendi

Filosofo baten bizitza heriotza zigorraz amaitzea, bestalde, ez da arras bakana; baina hilketa saio batez eta **anatema** ikaragarri batez hastea, bada: nondik nora labankada hura Amsterdameko kale-kantoi ilunean? (Spinozak hil arte gorde zuen soingaineko arrakalatua, gizakiek ez dutela beti egia maite oroitzeko.). Markos Zapiain

Hitz batean, egin sakrifizio handi bat jaunari, eta ez dadila zure eskuetan **anatema** horren pusketa txikienik ere geratu. Juan Martin Elexpuru

Gustu txarrekoa ez ezik **anatemak** sortarazteko modukoa irudituko zaio irakurleari neure burua pentsaera elizkoi eta atzerakoiaren paradigma harekin kidetzea. Xabier Mendiguren Elizegi

---

anatematizatu, anatematiza(tu), anatematizatzen du *ad* eskumikatu.

Horrelako burugabekeria itxuragabeak hainbeste amorrarazi zuen apezpikua, non hutsegilea jendaurrean **anatematizatu** baitzuten, Stour ibaira bota, eta burua Erromatik ekarritako San Dennisen beste buru batez ordezkatu zuten. Xabier Olarra

Uxerrek soro, baratze edo mahastiak desegiten zituzten intsektuak epaimahai zibilen aurrera deitzen zituzten eta lekukotasun, argudio eta zigorraren ondoren *in contumaciam* jarraitzen bazuten, arazoa elizaren auzitegi nagusiaren eskuetan jartzen zen, eta hark solemnitatez eskomikatu eta **anatematizatzen** zituen. Xabier Olarra

---

anatoliar *izlag* Asia txiki edo Anatoliakoa, Anatoliari dagokiona.

Akemenestarrek etsipenez onartu behar izan zuten beren mendebaldeko **anatoliar** itsasertza galtzea. Iñaki Mendiguren

Ipar-ekialdeko **anatoliar** barrutiak, non akemenestarrek lurrak eman baitzizkieten pertsiar baroiei, Islamera konbertitutako albaniarrez kolonizatu zituzten osmanliarrek. Iñaki Mendiguren

Kristandade Ortodoxoa bere buruaz beste egiteko zorian egon zen, **anatoliar** armada-gorputz batek eta beste armeniar batek nagusitasunaren bila anaiarteko borrokan hasteko mehatxua egin zutenean. Iñaki Mendiguren

Italian bere senide zituen oskoera eta unbriera dialekto italikoekin borrokatu behar izan zuen, eta mesapiera eta veneziera iliriar dialektoekin [...], eta zer esanik ez etrurierarekin, bere **anatoliar** sorlekuko kultur ondarea bere gain zuela. Iñaki Mendiguren

---

anatomia 1 *iz* izaki bizien egitura, forma eta organoen arteko erlazioa ikertzen duen zientzia.

Anatomia (eta gero kirurgia) izan dira Bennetten atxikimendu etengabeak. Xabier Olarra

Zoologiari buruzko lanetan gizakia ere sartzen zuen eta honen **anatomia**, fisiologia eta portaera aztertu zituen. Berria - Gaiak

Gauza horiek, ematen zioten nazka gorabehera, ez zuten kezkatzen; **anatomia** eta disekzioa interesgarriak iruditzen zitzaizkion. Josu Zabaleta

Margolaritzako hainbat liburutan, Leonardorenean adibidez, irudia margotzeko **anatomia** ezagutu beharra dagoela azpimarratzen baitzuen. Josu Zabaleta

Zientziak ere oso aintzakotzat hartzen ditu txinpantzeen genetika, **anatomia** eta jokabideak. Luis Elberdin

Heziketa sexualak **anatomiari** buruzko eta informazio fisiologiko soiletik harantzago joan beharko luke. Luis Elberdin

Handik aurrera, eta gradualki, Brown jaunaren **anatomiako** hainbat atal joan zen aldatzen, guztiz beste gizon bat bilakatzeraino. Karlos Linazasoro

Ez nuen **anatomiako** ezaupiderik eta beharbada ez nuen funtsezko organorik ukitu. Eskarne Mujika

Artean Camusen *La peste*-ko Paneloux bezalakoa bainintzen: estudioetako gizona, jendea hiltzen ikusi gabekoa, **anatomiako** praktiketan gorpu izoztu bat baino gehiagorekin ibili behar izan genuen arren. Joan Mari Irigoien

Ez naiz medikuntza gorabeheretan aditua, baina **anatomiako** irakasle bibliofilo ezagun batez gogoraturik, liburuaren prezioaz galdetzea pasatu zitzaidan burutik. Anjel Lertxundi

Federiko Oloriz **Anatomiako** katedratikoak bi milatik gora garezur bildu ditu probintzia guztietatik. Joxe Azurmendi

Besteak beste Nafarroako Unibertsitatean **Anatomian** katedraduna. Berria - Euskal Herria

Medikuntzan eman zuen izena, eta gure aitak **anatomiako** gelan topatzen zuen aurrez aurre. Fernando Rey

Zaldi baten **anatomiaren** proportzioak ikertzen dituen marrazkia. Berria - Kultura

Heure **anatomiaren** parterik kuttunena munduaren zikinkeriatik babesteko, aurrez garbitu egiten dituk eskuak. Iñaki Iñurrieta

Urdaila bihurritu zitzaidan: inor sartu gabe zegoen nire **anatomiaren** bazter horretan. Juan Martin Elexpuru

2 (izenlagunekin)

XVII. eta XVIII. mendeetan, **anatomia** konparatuak eta fisiologiak apurka-apurka atzeman dituzte zenbait antzekotasun, antolamenduari eta funtzioari dagozkienak, organismo taldeen artean. Juan Garzia

Giza gorputza **anatomia** patologikoak definitzen duen moduan. Xabier Arregi

Klitoriari buruzko ikusmolde bateratu eta integratu horrek mundu berri bat azaldu zuen; emakumearen **anatomia** sexualaren ezagutza hobea ekarri zuen. Luis Elberdin

Gizakiaren sexuatze prozesuko faktore biologiko, psikologiko eta sozialen bateratze horretan, gerta liteke **anatomia** maskulinoa izanik emakume sentitzea. Luis Elberdin

Bada **anatomia** femeninoa izanda gizon sentitzen eta izan nahi duenik. Luis Elberdin

Horrenbestez, inguru berrian ugaldu ahal izateko, arrek eta emeek beren **anatomia** genitala egokitu zuten. Luis Elberdin

Sexologiaren arloan aurreratu dugu, hau da, gizakiaren **anatomia** genitala eta erantzun sexuala hobeto ezagutzen dugu. Luis Elberdin

Hemeretzigarren mende bukaerako neurologoek agudo onartu zuten filosofia hori, eta garunaren **anatomia** espekulatibo batean txertatu zuten. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Anatomia klaseek galdatzen zuten bezala, emakume baten eta gizonezko baten gorpuak ziren. Harkaitz Cano

Astero ematen ditu **anatomia**-lezioak Calgaryn. Xabier Olarra

Oraingoan ere, gorputzen proportzioetan edo **anatomia**-legeekiko fideltasunean jarri beharrean arreta, azal hutsean jarri nuen. Bernardo Atxaga

Oreka ozta-ozta gordetzen zuen liburu-dorrearen gainetik Izaki jakin baten hezur denak banandurik eman eta haren eskeletoa osa dezan eskatu zaion **anatomia**-ikaslearen pare dabil idazlea. Anjel Lertxundi

Anatomia-tratatua harturik, lehen esandako prezio berean eskaini zidan. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sadek bezala, Reichek ere sexu-**anatomia**, antikontzepzioa, abortua, kitzikapena edo orgasmoa ditu hizpide. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Esan beharra dago klitoria dela emakume **anatomiako** plazer eragile indartsuena; gunerik sentikorrena, bikainena, sutsuena. Luis Elberdin

Geneek, hormonek, burmuinak, obarioek, barrabilek, klitoriak, zakilak, uteroak, prostatak, baginak eta abarrek sexua eta egitura oso bat osatuz joango dira, eta horrek eme edo ar **anatomia** emango digu. Luis Elberdin

5 irud/hed

Konplot baten **anatomia**. Berria - Mundua

Iribarrek badaki zerbait golaren **anatomiaz** eta geometriaz, sartutakoez eta ez sartutakoez, golaren infinituaz eta zeroaz. Joseba Zulaika

"The Anatomy of Melancholy", Malenkoniaren **Anatomia**. Juan Garzia

Zibilizazio baten gizarte-**anatomian** Akilesen orpoa, ikusi dugun bezala, mimesiarekiko (imitazioarekiko) mendetasuna da, Iñaki Mendiguren

6 ***anatomia patologiko***

Gainera, **anatomia patologikoaren** gisako diskurtsoak sorrarazi ditu, eta handikeria litzateke, zalantzarik gabe, hauei sasi zientzia izena ematea. Xabier Arregi

7 ***giza anatomia*** *(corpusean ez dago; ETCn **141** agerraldi)*

Giza anatomia giza gorputza aztertzen duen zientzia da. ETC-entziklopedia

Isilaldi haietako batean, **giza anatomiaren** gai aspergarria eta, bidenabar esanda, nazkagarri samarra atera zuen norbaitek. ETC-literatura, saiakera

Laugarren kapituluak, ondoren, azpimarratzen du **giza anatomiari** tratamendu kuantitatiboa egiteak izan zuen eragina hemeretzigarren mendeko determinismo biologikoan. ETC-literatura, saiakera

Hortaz, nola eboluzionatu zuten jakiteko, ezinbestekoa da **giza anatomia** osoa kontuan hartzea. ETC-literatura, saiakera

Begien aurrean, **giza anatomiaren** bilduma bikaina zabaldu zen, xehetasun osoz deskribatuta gizakiaren gorputza osatzen duten hezurrak, lotailuak, giharrak, nerbioak eta odol zainak. ETC-literatura, saiakera

Liburutegian II. Mutikoskorretan, liburutegian, **giza anatomia**, ugalketa eta argazki bilduma jakin batzuk ziren gure liburu preziatuenak eta bilatuenak. ETC-literatura, saiakera

Eta historiako artelanak egiteko ezinbestekoa zen **giza anatomia** menperatzea. ETC-prentsa

Medikuntza fakultateetan **giza anatomia** ikasteko erabiltzen ditugun eskeleto modeloen gisakoak. ETC-prentsa

1990ean Bilbon sortu zenetik **giza anatomiaz** edo jardunaldietan jorratutako gaiaren inguruan euskara-gaztelania hiztegiak kaleratu ditu, eta euskara teknikoko ikastaroak ere antolatu ditu. ETC-prentsa

Imajina dezakegu debeku horrek bere horretan segi izan balu egun **giza anatomia** guretzat zein arrotza litzatekeen? ETC-prentsa

Neure begiz ikusi nahian, kuraia bildu eta **giza anatomiako** laborategira bisitaldi bat egin nuen, nire lehen gorpua aztertzera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Helburu horrekin adostu zen, hain zuzen, anatomiajarrera izena hartzen duen arauzko jarrera; hortaz, **giza anatomiaren** ikuspegitik, gorputzaren zein bere osagai eta organoen kokapena eta jarrera anatomia-jarreraren arabera deskribatzen dira1. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anatomia eta fisiologia** (3); **emakumearen anatomia genitala** (4); **haien anatomia** (3)
> **anatomiako irakasle** (5)

---

anatomiko *izond* anatomiarena, anatomiari dagokiona.

Gizaki bakoitzak genetikoki bere baitan darama giza espeziea, eta genetikoki moldatzen du bere singulartasun **anatomiko** eta fisiologikoa. Askoren artean

Hizkuntzalariek nahiago dute *vocal folds* esapidea, zalantzarik gabe askoz egokiago dena alderdi **anatomikotik**. Lourdes Oñederra

Elkartasun organikoen eta aldagai **anatomikoen** bidez gauzatzen diren funtzioei buruz. Xabier Arregi

Arnasa hartzeko dugun tresneria **anatomikoaz** baliatzen gara hitz egiteko ere. Lourdes Oñederra

Michelangeloren David-a, baina ez da perfektua, akats **anatomiko** bat baitauka: bizkarreko gihar bati erliebea falta zaio. Berria - Kultura

Hizketa-hotsen ekoizpena biriketan hasi eta ezpain- edo sudur-irtenunean bukatzen den ariketa **anatomikoa** da. Lourdes Oñederra

Aldaketa **anatomikoez** gain, primateen jokaera sexualean ere izan ziren aldaketak, eta ez nolanahikoak. Luis Elberdin

Fonetika artikulatorioak hotsaren ekoizpen **anatomikoa** aztertzen du. Lourdes Oñederra

Hala ere, haragizko kurben gainetik, proportzio **anatomikoen** gainetik, kontzeptua maite du, emakume-kontzeptua. Patxi Iturritegi

Ematen zuen Landek postulatutako bi egoerek oinarri **anatomiko** eta fisiologikoa izan zezaketela: uhin-luzerarekiko sentibera ziren V1eko zelulek ateratzen zituztela uhin-luzera bakoitzaren argitasun-indizeak, baina, kolorea sortzeko, beharrezkoa zen V4ko zelula kolore-kodetzaileetan konparatu edo korrelazionatzea. Xabier Olarra

Iradoki zuen existitu behar zirela ikusmen-gune bereizi batzuk, ikusmen-kortex primarioan, "argi-inpresio", "kolore-inpresio" eta "forma-inpresio"entzat, nahiz eta berak ez izan horren froga **anatomikorik**. Xabier Olarra

Ertzaintza gorpua aurkitu zuten lekura joan zen arrastoak jasotzera, eta, ondoren, Laura Orueren gorpua Basurtuko Auzitegiko Institutu **Anatomikora** eraman zuten. Berria - Euskal Herria

Institutu **Anatomiko** Forentsearen gainekoa egun horretan berean argitaratua zen. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
anatomiko forentsera eraman (3); institutu anatomiko forentsera (3)

---

anatomikoki *adlag* anatomiaren ikuspegitik.

Ia arrain guztiek dute, larruazal guztian dituzten dastamen-papilez gainera, **anatomikoki** sudurraren antzekoa den organo bat. Irene Aldasoro

Gaur egun ez dugu tresna egokirik goi mailan eragina duten halako galera sentsorial-neuralen ondorio sotilak **anatomikoki** adierazteko, baina Jonathan I.ren historiak frogatzen du nolako garrantzia duen hori argitzeak. Xabier Olarra

Nire teoria da kantuek **anatomikoki** zuzenak izan behar dutela. Harkaitz Cano

---

anatomista *izond/iz* anatomian espezialista dena; anatomian espezialista den pertsona.

Ba omen zuen iragan mendeko sendagile **anatomistak** bizi izandako istorio tristearen aditze lanbrotsua. Anjel Lertxundi

Zenbait gizonezko zoologo eta **anatomista** saiatu dira emakumearen sexualitatea ukatzen eta klitoria zakil barregarritzat jotzen. Luis Elberdin

Europako **anatomista** hoberenetariko bat da Velasco. Anjel Lertxundi

Andres Vesalio **anatomista** ospetsuarekin Parisen lanean ari zela. Askoren artean

Parisko **anatomista** izendun guztiek, zehaztasun eta oinarri sendoen falta direla-eta, barregarri utzi dituzte, gaizkileen kopuruari dagokionez, gai honi buruz argitaratu diren dedukzioak. Koro Navarro

Margoa **anatomista** jakintsu batek ikusten ez bazuen. Jon Alonso

Funtzio bakoitza garuneko leku jakin batekin lotzen delako ideia Franz Josef Gall austriar **anatomistak** aurreratu zuen. Irene Aldasoro

Segoviatik legoa eta erdira zegoen herrixka batean jaio, umetan zerrizain ibili, eta, makina bat bizi-minduraren ondoren, garaiko **anatomistarik** entzutetsuena izatera heldu omen zen Velasco sendagile hura. Anjel Lertxundi

Ikusmolde **anatomista** -naturalista batetik interesatuko dira gizakiaz, behiala Joanes Huarte Donibanekoa bezala. Askoren artean

---

anatomo (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) anatomiarena.

Nerbio-sistemaren **anatomo** -fisiologia osatzeko hain garrantzitsua izango dena. Xabier Arregi

Zorionez, baina, burutazio zoro horien ondoren, 80 urtean ikerketa **anatomo** -fisiologikoak egin ondoren, gauzak berriz beren lekuan jarri dira. Luis Elberdin

Korrelazio **anatomo** -kliniko sinpletik prozesu fisiopatologikoen azterketa fineraino. Xabier Arregi

---

anatopiko *izond* berez beste toki bati dagokiona.

'Anakroniko hitzaren antzera esaten da **anatopikoa,'** esan dit, aurpegian ezjakina igarri didanean, 'anakronikoa denboraz kanpo bizi den bezala, **anatopikoa** lekuz kanpo bizi da. Joseba Sarrionandia

Gure aita **anatopiko** hutsa zen. Joseba Sarrionandia

---

anatopismo *iz* lekuz kanpoko egoera.

Gure aita **anatopismoan** bizi zen. Joseba Sarrionandia

---

anauztar *izond* Anauzkoa, Anauzen jaioa.

Euskal Kultur Erakundeak akulaturik, bost kantari gazte ziren elgarretaratu duela zenbait hilabete: Maialen Errotabehere ezpeletarra, Magali Zubillaga aldudarra, Thierry Biscary **anauztarra**, Domeka Zubeldia urruñarra eta Celine Mounole larresoroarra. Herria

---

anbar *(orobat **ambar** g.er.)* **1** *iz* erretxina fosildua, gogorra, horia eta gardena.

Lehendik intsektuak ere aurkitu izan dituzte **anbar** horretan. Berria - Gaiak

Bisitariak **anbar** eta bioleten lurrina aditu dezake gelan sartu edo atera orduko. Berria - Kultura

Anbarra bezala, mate eta ia gardenak direlako, edota hezurrak bezala, zurbil eta hauskorrak direlako. Joxe Austin Arrieta

Paper-zatitxoak erakartzen zituen, hara, **anbarrak**, eta, haren ondoan jarririk, harantz hegatzen ziren. Xabier Olarra

Don Pedrori argia egin zitzaion: Izotz puska horietako baten baitan gizon bat kuzkurtuta, Arabako Urizaharra inguruko eltxoa **anbarrean** legez harrapatua. Bernardo Atxaga

Argazki batean denbora sartuta dago, barnean sartuta, argazkiak "euliak **anbarretan** bezala" baltsamatzen du iragana (Peter Wollen). Josu Zabaleta

Larru-langile: eskularruak egiten zituztenak, **anbarrez** perfumatzen zituzten. Patxi Ezkiaga

Erakusketan badira koadro luze zabal handiak, badira egun bereko lau unetan ateratako koadro-argazkiak funtsean, oihal koloreztatuak, eta badira kutxatxoak ere, bere baitan, altxor handia balitz bezala, intsektua biltzen duten **anbarezko** borbolak gogoratzen dituztenak. Berria - Kultura

Ilea **anbarrezko** aletxoz txirikordatan bildua, aurpegiaren alde banatara erortzen zaiola. Oskar Arana

Tututxoa **anbarrezkoa** zuen txibuki bat aspaldi ez zela jokoan irabazia... Jose Morales

2 (hitz elkartuetan)

Mikroorganismoak aurkitu dituzte 115 milioi urteko **anbar** zati batean, Urizaharran (Araba). Berria - Gaiak

Anbar zatiak mikroskopio elektroniko baten bidez ikertzea erabaki zutenean aurkitu zituzten mikroorganismoak. Berria - Gaiak

3 (izenondo gisa, kolorea dela eta)

Eta leihoko zirrikitu batetik ikusi nuen zerumugan urrutiko su baten kolore gorri eta **anbarra** goratzen, oinaztargien gisara. Fernando Rey

Zalapartan zehar, baterien argi **anbarren** atzean, Ellieren ahotsa: "Ez, ez, mina ematen didazu... Lopez de Arana

4 ***anbar arre***

Musketa (animalia baten jariakina), zibeta (era bereko substantzia) edo **anbar arrea** (balearen hesteetako hondakin digeritu gabeak) oso maiz erabiltzen dira, kantitate txikitan, lurringintzako nahasketetan. Irene Aldasoro

5 ***anbar gris*** *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Anbar grisa gai solido, argizarikara, sukoi eta usaintsua da, gris kolorekoa, kaxaloteen hesteetan sortzen dena. Finkatzaile gisa erabiltzen zen lurringintzan, perfumeen usaina luzaroan gordetzeko gaitasuna baitu, baina konposatu sintetikoek ordeztu dute gaur egun. ETC-entziklopedia

Horri esaten zitzaion -beste zerbait zelakoan, bistan da- balea-esperma, gaur egun **anbar grisa** deitzen dena: kosmetikan oso estimatua eta garestia izan den

sustantzia. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
anbar koloreko (4); **anbar zati** (3)

---

anbibalente *izond* bi balio edo zentzu dituena, bi modutara uler daitekeena.

Aitarenganako sentimendu sakon **anbibalentea**. Berria - Kultura

Madrilen jarrera **anbibalentea** da, ez da oso argia. Berria - Harian

Haatik, preso politikoen eskubideen aldeko aldarrikapena **anbibalentea** da. Berria - Mundua

Eguzki pirata honenganako jarrera erabat **anbibalentea**, beraren planeta gatibuak zirelarik, zorrotz adierazia dago Katuloren biko errimatu elegiakoetan: [...]. Iñaki Mendiguren

Anbibalentziak, beti izan naiz arras **anbibalentea**. Karlos Zabala

---

anbibalentzia *iz* anbibalentea denaren nolakotsuna.

Pertsona/animalia **anbibalentzia** horrek, gizakiaren animaltasuna bistan uzten du. Berria - Kultura

Zygmunt Bauman soziologoak dio, bere **anbibalentziaren** kontzeptuan oinarrituta, XXI. mendean inor ezin izango dela bere herrialdean "etxean bezala" sentitu eta, aldi berean, munduko edozein lekutan "ia etxean bezala" sentituko garela. Berria - Harian

Gogo-aldarterik gabe dihardu legeak, **anbibalentziarik** gabe. Joxan Elosegi

Judaren izaeraren **anbibalentzia** honek irakurketa psikoanalitiko aberatsa zabaltzen du. Joseba Zulaika

Nolabaiteko **anbibalentziaren** aurrean aurkitzen gara hautaturiko konparazio-terminoetako batean, eta agian, bietan. Iñaki Mendiguren

Eta, bai, Euskal Estatu bat ere beharrezkotzat jotzen du, Euskadiren askatasuna ekarriko duelako, baina horretaz erabateko **anbibalentzia** azaltzen du ETAk. Joseba Zulaika

Garbi dagoena zera da, beraien **anbibalentzia** moral tragikoak gai paregabe bihurtzen dituela poesiarako. Iñaki Mendiguren

---

anbiental *izond* anbienteari edo giroari dagokiona.

Piano Magic, Bonobo eta halako taldeen konposizio **anbientalak** ezagutu ditut eta gero eta erakargarriago egiten zait mundu hori. Berria - Kultura

Bi nortasunen arteko nahasketak emaitza paregabea erakutsi zuen, musika **anbientala** eta inprobisazio askea inork egin ez bezala nahasiz. Berria - Kultura

---

anbiente *iz* giroa.

Herriak laguntzen duen garaian norbera ere beste **anbiente** batean egoten da, estudioa oso artifiziala da. Berria - Kultura

Anbiente ona dugu taldean, esprinter bakoitzak etapa garaipen bana lortu du eta eskatzeko baimena emanda ere, ez ginateke hobeto egongo. Berria - Kirola

Platano baten azpian mahaia jarri, hara igo eta jotzen zuen aitak, eta sekulako **anbientea**, eta jende asko, denak dantzan jo eta fuego. Pako Aristi

Lino aske geratu eta gutxira, sexu enkontru bat-bateko eta lasaigarrien bila hiriburura joan ohi zen **anbienteko** taberna haietako bateko gela ilunean, Lino bereizi uste izan zuen komisarioak, begitazio hori izan zuen. Harkaitz Cano

Zu seguru **anbienteko** tabernetan ibili zarela txosnetatik pasatu ere egin gabe. Unai Iturriaga

---

anbiguetate ik **anbiguitate**.

---

anbiguitate *(orobat **anbiguetate** g.er.) iz* anbiguotasuna.

Zalantzarik ez dago, Irakaskuntza Librearen Instituzioak atea **anbiguitate** askotara zabaltzen zuela, eta "ko belaunaldia"ren anbiguiate guztietara. Joxe Azurmendi

Sarritan, joera honi buruz, halaber, **anbiguitate** handikoak diren "klasiko" eta "liberal" terminoak erabateko sinonimotzat erabiltzen dira. Iñaki Heras

Izendapen urri izan dira pentsamenduaren historian zehar **anbiguitate** gutxiagokoak. Piarres Xarriton

Aktore hitzaren genero-markaren ezak **anbiguitate** polita ematen dio esaldiari. Anjel Lertxundi

Anbiguitate funtsezkoa, handik gorako **anbiguitateen** iturri, liberalek arrunt historiarekiko daukatena da. Joxe Azurmendi

Gombrichek, adibidez, oso gogoan dauzka perspektibaren teoriazko **anbiguitateak** (ikuspuntu geometrikotik hartuta). Josu Zabaleta

Anbiguitateak badu bere xarma, baina **anbiguitate** horren azpian zer dagoen jakiteak ez du xarma murrizten. Berria - Kultura

Honela herria, herriaren izpiritua (mito bihurtua eta Antzinako Erregimenarekin identifikatua ber denboran), **anbiguitatean** erortzen da; eta **anbiguitatean** erortzen da, herria hala pentsatzen duen liberalismoa bera. Joxe Azurmendi

Liburu hori jada, dio P. Ribas Unamu-no-ren ezagutzaile minak, **anbiguitatez** josia dago: denbora guztian Espainiaz eta Espainiaren barnemuina zertzen duen tradizioaz dihardu-. Joxe Azurmendi

Ortega-k bere duda-mudak izan ditu, batez ere bere prekauzioak beti hartu ohi ditu, gauzak esan bai, baina Zakilixuten "gehiegiegi" ez esateko, **anbiguitate** tarte bat atxikiz badaezpada bere estilo manieristaren kiribilen artean. Joxe Azurmendi

Anbiguitatea, ordea, aberastasuna da Gombrichek, adibidez, oso gogoan dauzka perspektibaren teoriazko **anbiguitateak** (ikuspuntu geometrikotik hartuta). Juan Garzia

Anbiguitaterako joera du euskarak berez. Joxerra Garzia

Honezkero gauzarik sakratuenak eta argitsuenak ere ilundu eta **anbiguitatez** bete dira guretzat balioen munduan. Joxe Azurmendi

---

anbiguo **1** *izond* bi nahiz gehiago esanahi dituena, bi nahiz gehiago azalpen onartzen dituena. ik**bitariko**.

Dena lauso eta **anbiguo** bihurtzen du. Anjel Lertxundi

Keinu **anbiguo** bat egin nion buruaz. Anjel Lertxundi

Bide bikun horretan, gora eta behera, purutasuna erdiesten da, tasun **anbiguo** eta liluragarria, zeina kimikatik hasi eta oso urrun heltzen baita. Juan Garzia

Espainiako Konstituzioarekin bateragarri egin behar dela testua adierazi zuen mintzaldi **anbiguo** batean. Berria - Harian

Gure laboratorio xume eta ausart hartan, gauzarik xelebreenak analizaraztera, askotariko jendea etortzen zen, gizon eta emakume, zahar eta gazte, baina denak nabariki sartuak merkataritzaren saretzar **anbiguo** eta maltzurrean. Juan Garzia

Zer da kode ilun, nahasi eta **anbiguo** hori, non etengabe nahasten baita jurisprudentzia frantsesa erromatarrarekin; non legegileak hitz egiten baitu, eta juriskontsultua ageri baita; non jurisprudentzi gorputz osoa baitator kasu guztiez, zuzenbide zibileko puntu guztiez? Iñaki Iñurrieta

2 (artikulu mugatuarekin)

Valmont Tourvel andrearen eta Cécileren maitalea da, eta Merteuil andrearen maitale izana; Merteuil andrea, berriz, Dancenyren maitale izango da eta Valmonten maitale ohia da; horrez gainera, une jakin batean Prévanen maitale ere izango da, eta beste zenbaitetan Cécilekin duen harremanaren nolakotasuna **anbiguoa** gertatuko da. Jon Muñoz

Unibertsaltasunak aurpegi osoki positiboa duen bitartean -gizakia zabaldu, aberastu egiten baitu-, progresoak jada garai honetan Unamuno-rentzat zentzu **anbiguoa** dizu, negatiboa ez denean. Joxe Azurmendi

Eszena hitza bera nahi bezain **anbiguoa** da, gainera, esanahi asko baititu: egiazko espazio bat, antzezteko lekua, metonimiaz ekintza bera gertatzen den imajinaziozko lekua, eszenan jokatzen den ekintza dramatikoaren zati bat (ekintza zati oso bat, beraz), eta, horrenbestez, iraupen jakin bat ere bai. Josu Zabaleta

Ahatea ala untxia: erdiko irudia **anbiguoa** da. Josu Zabaleta

Garapenari ematen zaion laguntza publikoaren eragin beti ere **anbiguoa** ere kontuan hartu beharrekoa da, sarritan nazio ekonomikoki aurreratuen eragin politikoaren tresna osagarri bat baino ez baita izaten. Koro Navarro

Honelakoetan, "eraikuntza-homonimia" gertatzen dela esango dugu, eta, gure gramatika egokia bada, hizkuntzako perpaus honek **anbiguoa** izan beharko luke. Itziar Laka

Bi egi mota horien adiskidetze posiblea, teologia deituriko buru-diziplina berriaren arabera, hitzezkoa baino ez zen izan, eta kredoetan finkaturiko formulak ezin ziren inola ere iraunkorrak izan, aurkitu bezain **anbiguo** utzi baitzuten egiaren esanahi ekibokoa. Iñaki Mendiguren

Eszena hitza bera nahi bezain **anbiguoa** da, gainera, esanahi asko baititu: egiazko espazio bat, antzezteko lekua, metonimiaz ekintza bera gertatzen den imajinaziozko lekua, eszenan jokatzen den ekintza dramatikoaren zati bat (ekintza zati oso bat, beraz), eta, horrenbestez, iraupen jakin bat ere bai. Josu Zabaleta

Kristautasunak judaismoarekiko zuen erlazioa ezeztaezina zen juduen begietara eta gogaikarriro **anbiguoa** zen kristau-kontzientzientzat. Iñaki Mendiguren

Ilunak edo **anbiguoak** diren pasarteak bere hartan utzi ditut. Berria - Kultura

Hitzek, berriz, irakurketa ugaritarako aukera ematen dutela azaldu zuen: **"Anbiguoak** eta irekiak dira, nahiz eta agian kantu bakoitzak gai bat duen. Berria - Kultura

Ez da bere asmoa bere burua ezabatzea irakurketa baten apaltasun **anbiguoan**, zeinak etorraraziko lukeen, bere gardentasunean, jatorriaren argitasun urruna, behin-behinekoa, ia ezabatua. Xabier Arregi

Eta "grina" hitza hain modu **anbiguoan** esan nuen, non nik ere sentitu bainuen giroa berotzen eta berotzen, lurretik gora lurrun gorri-bizi bat zabaldu izan balitz bezala. Karlos Zabala

Gurutzearen itzalean ezkutatuta beraien hitz **anbiguoaren** pozoiaz langileria desantolatu nahi duten horiei. Koldo Biguri

Filosofiako saio edo idazlanetan termino **anbiguorik** ez erabili, norberak testua bere erara ulertzeko arriskua baitago. Askoren artean

Cervantes-en testua eta Menard-ena berdin-berdinak dira hitzei dagokienez, baina bigarrena ia infinituki aberatsagoa da. (**Anbiguoagoa**, esango dute haren arbuiatzaileek; anbiguitatea, ordea, aberastasuna da). Juan Garzia

Funesek burutan erabili zuen noizbait antzeko hizkuntza bat, baina orokorregi, **anbiguoegi** iruditurik baztertu zuen. Juan Garzia

Eta begi **anbiguoak**, Harrosko gaztearenak denetan **anbiguoenak**. Koldo Biguri

Halako gaien inguruan jarrera **anbiguoek** ez dute balio. Berria - Euskal Herria

3 *nukleo anbiguo* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Nukleo anbiguoa neurona motorrez osaturiko gara nerbioen nukleo bat da, hain zuzen ere, erraietako nukleo eragile berezietariko bat. ETC-entziklopedia

Bere alboko aldea odoleztatzen du (beheko oliba, zuntz espinotalamikoak, zuntz espinozerebelosoak, trigeminoaren nukleoa, nukleo bakartia, **nukleo anbiguoa**, beheranzko zuntz sinpatikoak, beheko zerebelo pedunkulua, nukleo bestibularrak eta gracillis eta cuneatus faszikuluak). ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
anbiguo bat egin (3); **keinu anbiguo bat** (3)
anbiguoa da (13); **anbiguoa izan** (7)

---

anbiguoki *adlag* era anbiguoan.

-O, badakit, badakit -esan zuen On Camillok, **anbiguoki**, bueltak poltsikoratuz. Koldo Biguri

---

anbiguotasun **1** *iz* anbiguoa denaren nolakotasuna.

Anbiguotasun horrek gure harremanak oro iluntzen ditu, edo behintzat uhertzen, mututasuna ez baldin bada, isiltasuna hedatuz. Itxaro Borda

Seinalatu dugun **anbiguotasun** horrek ez du eragozten, ordea, idazkeraren zehaztasuna; aitzitik, polaritate horretan oinarritzen dela esango nuke Borgesen estiloa. Juan Garzia

Pantailan pertzibitzen diren mugimenduen **anbiguotasuna** askotan aipatu izan dute zinemaren teorialariek. Josu Zabaleta

Denak bat datoz kontzeptuaren **anbiguotasuna** ezin dela definizioa zehaztuta konpondu esatean. Berria - Gaiak

Osagai-egiturarik gabeko hizkuntz teoria baten desegokitasuna erakutsi ahal izan dugu, beheko mailetan azaltzeke gelditzen diren **anbiguotasuna** edo esanahi-antzekotasuna duten kasuak aurkeztuaz. Itziar Laka

Gramscik hemen posizioen gudu kontzeptua erabili zuen, esan nahi baita, gizartean edozein jarrera ez dela betiko itxia, ezin dela transzendental bihurtu, azken batean, **anbiguotasuna** nahitaezko duela. Joseba Zulaika

Garbi geratu zen kontzeptuaren erabilera komun horixe zela garapen iraunkorraren indargunea; **anbiguotasuna**, berriz, ahulunea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hizkuntzaren ikuspegi aurrekontzeptuala dute, ez dakite ironiak eta **anbiguotasunak** bereizten gaituela animaliengandik. Anjel Lertxundi

Aintzat hartu beharko litzateke, halaber, horrelako erregela askoren bidez nola ematen duen hizkuntzak **anbiguotasuna** hausteko aukera. Lourdes Oñederra

Zalantzak daude, **anbiguotasunak**. Berria - Kultura

Zuzentzailearen betebeharretako bat da **anbiguotasunak**, estilo mailakoak nola esanahikoak, saihesteko irtenbideak proposatzea. Jon Alonso

Horrelakoetan, **anbiguotasunaren** eremu labainkorretan barrena sartzen gara, non jolasak gailentzeko parada aurkitzen duen. Iñaki Arranz

Estatutu berria **"anbiguotasunik** gabe" defendatzeko eskatu zion atzo Masek Maragalli. Berria - Mundua

Informazio hori ez da **anbiguotasunik** gabea, jakina: ezin igaro daiteke hiru dimentsiotako eszena batetik bi dimentsioko irudi batera informaziorik batere galdu gabe. Josu Zabaleta

Sendotasuna eta bortiztasuna dute adierazpenean, eslogan publizitarioen indarra, baina aldi berean enigma baten **anbiguotasuna** uzten dute airean. Berria - Kultura

Abertzaleak jakina, hortzak tinko, lepo zaina hegian, oka egiteko zorian, borroka armatuarekiko **anbiguotasunez** beteriko ikusmoldea darabil. Itxaro Borda

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gaineratiko gaietan ez baina, ETAren ihardunarekiko **anbiguotasun** handiz aritzen gara. Itxaro Borda

Zentraltasunera itzultzen ari dira, EAJk hain maitea duen **anbiguotasun** historikora, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

Juan Cruz Alli CDNko presidenteak **"anbiguotasun** kalkulatua" erabiltzea egotzi zion PSNri, eta CDNk IV. Berria - Euskal Herria

Pandorak **anbiguotasun** funtsezko bat dakar mundura, Jean-Pierre Vernant-ek (6-2) ongi erakutsi duen moduan. Juan Garzia

"Testuko **anbiguotasunik** emankorrena ezabatzen da", idatzi du euskaratzaileak. Berria - Kultura

Ohar bedi egiturazko **anbiguotasunari** buruzko hausnarketak eskain daitezkeela baita osagai-egitura maila eratzeko ere. Itziar Laka

DUPek, bestalde, atzo esan zuen proposamenak **"anbiguotasun** nahasgarria" duten alorrak dituela, baita itxuraz kontrajarriak direnak ere. Berria - Mundua

Ez genioke gramatikari eskatuko (ahoskera bera duten I.O.) *son* "seme"/*sun* "eguzki" hitzen, edo *light* "argi, arin" hitzaren **anbiguotasun** erreferentziala azaltzeko. Itziar Laka

3 (hitz elkartuetan)

Sharonek **anbiguotasun** maila handi honi aurre egin ziezaiokeen, iritzi publikoaren gehiengoa prest zegoelako bere erabakietan sinesteko, beste politikarien kasuan ez bezala. Berria - Mundua

Anbiguotasun puntu bat ere aurki daiteke: autodeterminazio eskubidea herriei dagokien eskubidea dela esan ondoren, zehaztasunen unean "Euskadiren erabakitzeko eskubidea" aipatzen duelako, Euskadi horren eremua zalantzan utziz. Berria - Euskal Herria

Antanaklasiak hitz homonimoak aurrez aurre jartzen ditu, zeinek bere esanahi propioarekin, **anbiguotasun** arrastorik gabe. Iñaki Arranz

4 ***anbiguotasun lexiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Anbiguotasun lexikoa edo anfibologia hitz, sintagma, proposizio edo perpaus esaldi batek esanahi bat baino gehiago dutenean eta, beraz, interpretazio bat baino gehiago onartzen duenean sortzen da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anbiguotasun guztiak** (3); **anbiguotasun horrek** (3)
> **anbiguotasunik gabe** (6)

---

anbisilabiko *izond*

Ziurrenik *gawa* ahoskera gertatzen denean, *w* **ANBISILABIKOA** da, silaba baten hersketa eta hurrengoaren irekitzea batera egiten dituena. Lourdes Oñederra

---

anbizino ik **anbizio**.

---

anbizio *(orobat **anbizino** g.er. eta **anbizione** g.er.,)* **1** *iz*

Zergatik ez nion galdeari ihardetsi? Komisarioa bilakatzeko **anbizioa** nuelako bakarrik? Itxaro Borda

Arima ziztrinak **anbizioa** eta interes ezkutuak susmatzen ditu azpian. Joxe Azurmendi

Ekoiztetxe txikia zenaren arrakasta eta **anbizioa** handitu ahala, harremanak gaiztotzen joan ziren, eta Disneyren gainbehera etorri zen. Berria - Ekonomia

Airbuseko presidenteak ez du bere **anbizioa** ezkutatzen. Berria - Ekonomia

Tira, osasuna gordetzea espero nuen, erosoa delako, eta lanik falta ez izatea, hauexek ziren nire **anbizioak**. Jon Alonso

"Bakoitzak bere **anbizioak** ditu, eta NBA beste pauso bat da". Berria - Kirola

Utz, bada, alferrik nekaturik, odolez izerdizta daitezen, **anbizioaren** bide estuko deman. Xabier Amuriza

Gero eta lehiakortasun handiagoan murgildua dago sektorea, baina **anbizioari** ez dio muzin egin Carlos Ghosn presidenteak. Berria - Ekonomia

-Sinetsiko al didazu dagoeneko ez dudala **anbiziorik** kasik? Koro Navarro

Legeak ez du Euskal Autonomia Erkidegoaren mugak gainditzeko **anbiziorik**; baina, hori aparte utzita, ezta berdintasuna behartzeko mekanismoak zehazteko ere.Leku berriak konkistatzeko **anbiziorik** ez zaigu falta, ezta esportatzeko lehengaia ere: artistak. Berria - Euskal Herria

Anbiziorik, gogorik eta pretensiorik gabe idatziz gero ez da ezer fundamentuzkoa aterako. Berria - Kultura

Anbizio bat? Berria - Kirola

Umeak bere, lehenago, figura usainean etorten ziran, baina orain **anbizino** hori asko txikitu da. Xabier Amuriza

- **Anbizinoa** txikitu eta zaletasuna handitu? Zelan dok hori? Xabier Amuriza

Gure xedean da, alde batetik, euskararen "normalizatzeko" **anbizioneari** jarraikitzea, eta bestetik, jendartean hurbiletik nahiz hein globalagoan hunkitzen gaituzten gai batzuen jorratzea. Herria

Batek galda lezake jende hori **anbizionez** bete oportunista ala azterketa politikoa zimiztaren ziztuan egin duen minoria bat den. Itxaro Borda

2 (izenondoekin)

Parisen esku-hartzea salatu du eta Forgeardi leporatu dio **anbizio** pertsonalei lehentasuna ematea. Berria - Ekonomia

Sarkozyren **anbizio** politikoak argi azaltzen dute 27 urtetan Neuillyko alkate eta 38etan ministro bilakatu izanak. Berria - Mundua

Orduan, Miarritze, oraino honen herri landako, larreko eta gisako hau, diruaren **anbizio** gaiztoak joko du. Koldo Izagirre

Trebetasun, iz. Gizon abilak gizon hiletatik bereizten dituzten **anbizio** ziztrinen parte txiki bat betetzeko berezko hornidura. Xabier Olarra

Eta hartaz hasten da hitz egiten, Petrus sendo eta fidagarriaz, emazte bi eta **anbizio** neurritsuak dituen gizonaz. Oskar Arana

Anbizio gordinenen historia basa ertarotarra da, krimenez josia. Joxe Azurmendi

Egia da **anbizio** handia nuela garai batean, demagun hamabost eta hogei urteren artean. Ana Urkiza

Baina bidaiarik ez gehiago, **anbizio** handirik ez gehiago. Oskar Arana

Pasqual Maragall Kataluniako Generalitateko presidenteak **"anbizio** handiagoa" eskatu zien atzo herritarrei, Diada Nazionalaren bezperako mezu instituzionalean. Berria - Mundua

Familia Plana **"anbizio** handiko ekimen moderno" moduan hartu zuen Azkarragak, "ez baita soil-soilik jaiotza politikara mugatzen, lana eta familia uztartzeko neurri garrantzitsuak ere jasotzen ditu eta". Berria - Euskal Herria

Batzuk **anbizio** hutsez bihurtzen dira esklabo; besteak derrigortuta sentitzen direlako. Pako Aristi

Arima ziztrinak **anbizioa** eta interes ezkutuak susmatzen ditu azpian. Joxe Azurmendi

3 (hitz elkartuetan)

Epe motzean errentagarria zaiguna soilik ikasten dugun mundu bat eraiki du giza **anbizioak**. Pako Aristi

Anek beti ere **anbizio** falta leporatzen zidan, ea zergatik ez nuen jotzen argitaletxe handietara, baina nik testuen intentsitatean pentsatzen nuen, ezin nuen Internetet baino gorago jo, ez nengoen ziur. Iban Zaldua

Beste urte batzuetan baino animatuago nago, eta **anbizio** apur batekin, baina batez ere final ona egiteko helburuarekin Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anbizio apur** (3); **anbizio falta** (3); **anbizio handiko** (3); **anbizio handirik** (4)
> **anbiziorik ez** (3)

---

anbizione ik **anbizio**.

---

anbizioso **1** *izond* anbiziotsua.

Igande arratsaldeetan jende asko biltzen baitzen gurera, eta ez baitzegoen orduan huts egiterik... aita **anbiziosoa** baikenuen. Joan Mari Irigoien

Maisutza industrialeko ikasketak zituen, tornularitza arloan, baina beti gora begira bizi zen, gizon **anbiziosoa** baitzen, esan dut lehenago. Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

*La Cabra Mecanica*k urrats bat egin eta bere diskorik **anbiziosoena** kaleratu du orain gutxi: Hotel Lichis. Berria - Kultura

Eta azken batean, jolasean ibiltzea zen Matiasen helbururik **anbiziosoena**. Unai Elorriaga

---

anbiziotsu *izond* anbizioa duena.

Anbiziotsua naiz, salbazioa eskura dugu, eta beste gauzetan pentsa dezakegu. Berria - Kirola

Ortega-ren asmo **anbiziotsua**, aldiz, sintesi handia da. Joxe Azurmendi

Hizkuntz politika irekiago eta **anbiziotsuago** baterako bidea zabaltzen ari dira. Berria - Kultura

Anbiziotsua, agian **anbiziotsuegia** da Rodriguezen lana, eta zenbaitetan balantza egiten du testuari koherentzia ematerakoan, nobela eta saiakera uztartzerakoan, edo gai batetik bestera jauzi egiterakoan. Berria - Kultura

Beste erreforma **anbiziotsua** negoziazio kolektiboarena izango da, hurrengo 15-20 urteetan indarrean izateko asmoarekin. Berria - Ekonomia

K. a. 3000. urte aldera hasi eta gotortuz joan diren despotia teknologikoek beren operazio militar **anbiziotsuekin** eta, askotan, beren proiektu tekniko erraldoiekin eragindako bortxakeria itzel eta bizitzaren sarraski itxuragabekoen aurka sortu diren mugimendu anitzetako bat da budismoa. Joxe Azurmendi

Jaurlaritzari dagokionez, egitasmo benetan **anbiziotsuen** falta aipatu beharra dago. Berria - Kultura

Disko **anbiziotsua** zen, baina, ororen gainetik, edertasun osoaren bila abiatu zen Wilson: lanak, izenburuak adierazten zuen bezala, entzulearengan irribarre amaigabea sortzea zuen helburu. Berria - Kultura

---

anbliopia *iz* lesiorik izan gabe gertatzen den ikusmenaren murriztea.

Gauza jakina da nikotinak ikusmen-lausotzea ekar dezakeela (**anbliopia**), eta akromatopsia ere bai, batzuetan; erretinako zeluletan duen eraginaren ondoriozkoa izan ohi da, gehienbat, gaitza. Xabier Olarra

---

anboi *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi) iz* elizetan, aldareraren alboetara dauden pulpituetako bakoitza.

Anboia tenplu katoliko eta ortodoxoetan Biblia irakurtzeko eta apaizaren hitzaldia emateko tokia da. Atril, podio edo pulpitu moduan ere izan daiteke. Eliza batzuetan, antzinako ohiturari jarraiki, bi **anboi** daude: eskuin aldean (aldarearen aurrean), irakurketa orokorretarako eta ezker aldean, berriz, Ebanjelioa irakurtzeko. ETC-entziklopedia

Irakurgaiak aldarrikatzeko erabiltzen direnean, **anboi** ere deitzen zaie. ETC-entziklopedia

Aldarea, ziborioa eta **anboia** suntsitu ziren. ETC-entziklopedia

Egurrarekin Miguel Igartuak eskuz eta maitasun handiarekin egindako aldarea, **anboia** eta sagrarioa, ostera, gurutzearekin batera, Errenteriara eramango ditugu. ETC-prentsa

---

anbrosia *iz* jainkoen elikagaia; jateko edo edateko gozatsua.

Ahuntz bizardunei basa-oliba atsegin zaie, hartatik **anbrosia** baletor eta nektarrez gantzuturik balego bezala; gizakiontzat, berriz, ez dago haren hostoa baino mingotsagorik. Xabier Amuriza

Lurrak ziklopeoi ere ematen ziguk ardorik, baina heure hau **anbrosia** eta nektar hutsa duk. Juan Kruz Igerabide

Gero, biak leizezulora joan ziren, eta Kalipsok janaririk eta edaririk gozoenak eskaini zizkion, **anbrosia** eta nektarra besteak beste. Juan Kruz Igerabide

Orduan, ken diezaiogun sexuari kaka zahar hori guztia, eta eskain dezagun **anbrosia**, hortxe baitago txorakeriak alde batera utzi eta ikusi nahi duenarentzat. Karlos Zabala

---

anbulante **1** *izond* pertsonez mintzatuz, lana egoitza finko batetik kanpo egiten duena.

Geltokiko sarrerara hurbiltzean bananak eskaini zizkion saltzaile **anbulanteak**. Iñaki Zabaleta

Ume batek txoklo bat erosiko dio saltzaile **anbulanteari**. Joseba Sarrionandia

Geltokitik kanporatzean fruitu tropikalak saltzen ari zen puertorrikotar **anbulante** baten mahaira hurbildu zen eta bananak erosi zizkion. Iñaki Zabaleta

Aurrean, segur aski, musikari **anbulante** batzuek kontzertua eskainiko diete, borondatezko zapela-pasa ugariekin zatikatua. Iñaki Zabaleta

2 irud/hed

Ardura, biziak berak zer balio zuen kezkatzen nintzen, gaueko zauri **anbulanteak** suizidio etengabe baten urrats anitzak zirela gogoan eramanez. Itxaro Borda

Gorria isil isilik dator gurekin, lurrera begira, bere katalepsia **anbulantearekin**. Joseba Sarrionandia

---

anbulantzia **1** *iz* eriak eramateko prestaturiko ibilgailua.

SOS Nafarroak abisua jaso zuen eta bi **anbulantzia** bidali zituen istripua gertatu zen lekura. Berria - Euskal Herria

Azkenean **anbulantziak** iritsi ziren, eta Brent haietako batean jarri zuten. Xabier Olarra

Anbulantziak eta suhiltzaileak istripua gertatu zen tokira hurbildu ziren, laguntza emateko asmoz. Berria - Euskal Herria

Aurretik **anbulantzia** bat, eta atzetik lau polizia furgoi. Jokin Muñoz

Anbulantzia baten sirenaren ulua etorri zen kaletik. Iñaki Zabaleta

-Datorrela hona **anbulantzia** bat erizain pare batekin. Koldo Izagirre

Najjar ospitaletik zetorren **anbulantzia** gerarazi zuten soldaduek. Berria - Mundua

Presoaren abokatuak mugaraino **anbulantzian** eraman dezaten eskaera egina du. Berria - Euskal Herria

Medikuak **anbulantzian** iritsi ziren Arafatek Mukatan duen egoitzara. Berria - Mundua

Medikua joan zen Sanchizekin **anbulantzian**, gidariak hala eskatuta. Berria - Euskal Herria

Azkarate Alcala Meco espetxeko erietxean dago egun, otsailaren 21ean Martuteneko espetxetik **anbulantziaz** hara eraman zutenetik. Berria - Euskal Herria

Anbulantziari deitu diote lehenbailehen etor dadin. Hasier Etxeberria

Konturatzerako, ordea, ohatilara jaso eta **anbulantziara** sartu zuten. Pako Aristi

Laster batera, berriz, **anbulantziaren** presazko sirenots eta argi beldurtuek bat egin zuten polizi autoarenekin. Joxemari Urteaga

Bestalde, **anbulantzien** gutxieneko zerbitzuak eskaintzeko geroz eta zailtasun gehiago dituzte. Berria - Ekonomia

Israelek NBEko Errefuxiatuak Laguntzeko Batzordeari (UNRWA) egotzi dio ekintzaileei koheteak **anbulantzietan** garraiatzen laguntzea. Berria - Mundua

Egun, 720 eurokoa da Gipuzkoako **anbulantzietako** gidarien soldata gordinaren oinarria. Berria - Ekonomia

Israelgo okupazio indarrek zulo handiak egin dituzte eta **anbulantzietako** bat erre dute, mediku taldeetako bat barrenean zela. Berria - Mundua

Gipuzkoako **anbulantzietako** enpresen ikuspegitik, negoziazioak "hautsita" daudela komunikabideen bidez jakin dute langileek. Berria - Ekonomia

Asteartean, **anbulantzietako** jabeek karabana egin zuten hiru sindikatuen egoitzatik. Berria - Ekonomia

Azaroaren 29an hasi zen **anbulantzietako** langileen greba. Berria - Ekonomia

Anbulantziakoak sartu ziren, eta nigana hurbildu nahi izan zuten, baina Adlerrekin joateko keinua egin nion. Xabier Olarra

Zuzenketek aurrera egin dutenez, hiri garraioko langileei, taxilariei, **anbulantzietakoei**, postariei, segurtasun zerbitzuetako beharginei eta aldi baterako enpresetako langileei ez die eragingo. Berria - Ekonomia

Ostenden Gurutze Gorriaren **anbulantzia** batek hartu zuen, bertan zihoan norbaitek ezagutu egin baitzuen. Fernando Rey

Anbulantzien sirena hotsa etengabe entzuten zen kaleetan. Berria - Mundua

Zauritutakoen oihuak; **anbulantzien** sirenen soinua; frankotiratzaileen tiroak. Berria - Mundua

Anbulantziako medikuei agindu zien txinatar hilerri ondoko ospitalera joatea. Ramuntxo Etxeberri

Itxura denez, oso zaila egin zitzaien suhiltzaileei eta **anbulantziakoei** txabola zegoen lekuraino iristea, eta oinez joan behar izan zuten haraino, kostata. Berria - Euskal Herria

Anbulantziakoek pultsua eta arnasa hartu zizkioten. Iñaki Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gizona leihoaren kontra kankarreko bat hartuta **anbulantzia** pribatu batean etxera bidali behar izan nuenean. Xabier Olarra

Zortzi sorosle eta **anbulantzia** medikalizatu bat joan ziren gizonari laguntzeko, baina ezin izan zuten donostiarraren bizitza salbatzeko ezer egin. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako larrialdietarako **anbulantziek**, herrialdeko lan hitzarmen kolektiboa aldarrikatzeko asmoz, bi eguneko lanuztea hasi zuten atzo. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan)

Osakidetzaren iritziz, ordea, **anbulantzia** deia jaso eta zazpi minutura iritsi zen. Berria - Euskal Herria

Emakume horri asistentzia emateko **anbulantzia** eskaera 13: 15ean du gorderik Osakidetzak, eta ertzainen salba jaurtitzea 13: 21ean izan zen. Berria - Euskal Herria

Kalte egiten diegun **anbulantzia** erabiltzaileengatik sentitzen dugu, sufritzen ari direlako, baina gu eskatzen ari garena ez da luxu bat. Berria - Ekonomia

Anbulantzia zerbitzuak okerrera egin duela ziurtatu dute grebalariek. Berria - Ekonomia

LRK **anbulantzia** zerbitzuko gidari bat eta osasun-langile bat "bidegabeki" kaleratu dituztela salatuko dute. Berria - Ekonomia

Geroago, Lehenengo Mundu Gerran, **anbulantzia**-gidari ibili zen Italian eta Frantzian. Lopez de Arana

Etzaulki trakets hark Gerra Handian **anbulantzia** gidari jardun zueneko gomuta dakarkio burura. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anbulantzia batean (7); **anbulantzia bati** (5); **anbulantzia berehala** (3); **anbulantzia etorri** (4); **anbulantzia gidari** (6); **anbulantzia gidariek** (4); **anbulantzia iristean poliziak** (3); **anbulantzia iritsi** (3); **beste anbulantzia** (4); **bi anbulantzia** (3); **da anbulantzia** (3); **hainbat anbulantzia** (5); **iritsi zen anbulantzia** (5); **zuen anbulantzia** (3)

anbulantziak gelditu (3); **gipuzkoa anbulantziak** (3)

anbulantziako medikuak (3)

anbulantzian bertan (3); **anbulantzian eraman zuten** (5); **zuten anbulantzian** (3)

anbulantziari deitu zioten (3)

anbulantzietako enpresek (4); **anbulantzietako gidarien** (4); **anbulantzietako langileak** (3); **anbulantzietako langileek** (6); **anbulantzietako langileen** (4); **donostia gipuzkoako anbulantzietako** (4)

---

anbulategi *(ETCn **158** agerraldi) iz* anbulatorioa.

Kasurik gehienetan, osasun zentro edo **anbulategira** joan besterik ez dute txertoa hartzeko. Berria - Harian

Kolpe gogorra hartu nuen, baina ez nuen etsi: ahal izan nuen moduan Burgoseraino heldu, hango **anbulategi** batean larrialdiko sendaketa egin, eta aurrera jarraitu nuen besteekin batera. Askoren artean

Kanpainaren leloa, **Anbulategian** eman dizuten baja ez diezazula mutuak kendu. Berria - Ekonomia

Gaur, Mendaroko ospitalearen aurrean eta Azpeitiko **anbulategian** elkarretaratuko dira. Berria - Ekonomia

Bilboko Alde Zaharrean, Ekineko hainbat jardueratan parte hartu zuela ere azaldu zuen, auzoko **anbulategiko** medikuen euskalduntzearen alde, adibidez. Berria - Euskal Herria

---

anbulatorio *(ETCn **1.248** agerraldi) iz* ohean gelditu behar ez duten gaixoentzako sorospen etxea.

Nik hitzordua eskatu dut, bihar goizerako, auzoko **anbulatorioan**. Iban Zaldua

Hirugarren solairuko botoia sakatzean gogora etorri zitzaion, hain zuzen, hiru egun barru jaso behar zituela analisien emaitzak **anbulatorioan**. Berria - Kultura

Zortzi eta erdietarako joan nintzen **anbulatoriora**, kontsulta pasatzera. Joan Mari Irigoien

Tolosa, ordura arte, Gizarte Segurantzako **anbulatorioa** zen niretzat, familiako medikuak X izpiak ateratzeko edo espezialistak ikusteko bidaltzen gintuen osasun zentroa. Xabier Mendiguren Elizegi

Anbulatoriora iristean, larrialdietako sarrerara abiatu ginen zuzenean. Aitor Arana

Altzako **anbulatorioko** egongela batean zegoen Sara Huarte, medikua noiz itzuliko zain, bere iragana oroitzen zuen bitartean. Joan Mari Irigoien

Gainerako kasuetan, **anbulatorioetan** (%19,9), larrialdi zerbitzuetan (%5,2), lan istripuetako mutuen laguntza zentroetan (%3,4) eta osasun mentaleko zentroetan (%2,2) eskaintzen zaien aukeraz baliatzen dira herritarrak. Berria - Euskal Herria

Min egin zien entzuteko lanik ere hartu ez izana; ezta entzuteagatik entzutea ere, eguneroko bizimoduan gutxieneko begirunea duen edonork egin ohi duen bezala, **anbulatorioetako** itxarongeletan bereziki, makina bat istorio triste entzun behar izaten baita halakoetan. Ramon Saizarbitoria

Amaren historialak egia bazioen, bazirudien ez zela **anbulatorioko** kontsultetatik inoiz pasatu. Joan Mari Irigoien

Hasteko, **anbulatorioko** fitxategian bilatu eta arakatu nuen. Joan Mari Irigoien

Anbulatoriokoek gaineratu zutenez, osasun zentroko kanpoaldean zebilen ustezko erasotzailea, emakumearen senarra. Berria - Euskal Herria

23.600 metro koadro, bost solairu horietatik bi, lur azpian 52 gela, 104 ohe, ebakuntzak egiteko lau gela adimendun, kimioterapiarako 12 **anbulatorio** postu, energia handiko bi azeleragailu lineal eta kardiologia nuklearreko Gamma-kamera. Berria - Euskal Herria

---

anbulo *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)* **1** *iz* larreko landarea, Liliaceae familiakoa, ezpata gisako hostoak eta lore zuriak buruxketan bilduak dituena *(Asphodelus albus)*.

Erromeroa eta izpilikua eta **anbuloa** jarri zituen, eta erratza propio Ingalaterratik ekarrarazia, eta arrosak, eta lurra anemonaz tapizatuta zegoen. ETC-literatura, saiakera

Txotxen arteko hutsuneak zehazki josita zeuden eta ertzetan zetazko **anbuloak** zituen. ETC-literatura, saiakera

Itzaletako **anbulo** artean, zure itzal lausoak. ETC-prentsa

Anbuloa, larreko landarea (Asphodelus albus). ETC-zientzia, zuzenbidea

Bere basoan arteak eta ereinotzak nagusi dira, baina endalar, erratz, **anbulo** edota biri-belar ere topatu ditzakegu. ETC-entziklopedia

2 ***anbulo gaizto*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Anbulo gaizto (Narcissus pseudonarcissus) horiarekin batera, oraintxe, zuritik loratzen da adjektibo dotore hori nonbait merezi ez duen anbuloa: anbulo zuria, olana, porrostia, kulunboa edo basaporrua (Asphodelus albus). ETC-prentsa

Lilipa arrunta edo **anbulo gaiztoa** ("Narcissus pseudonarcissus") "Amaryllidaceae" familiaren espezie baten izen arrunta da. ETC-entziklopedia

---

anbulu

1 ***anbulu zuri*** *liliaceae* familiako landarea, ihi itxurako hostoak dituena eta lore zuriak ematen dituena.

Ikusiko da hortaz nolako antza zuen nire arrazoimenak, hutsalkeriek bere orekatik aterarazten zutelarik, Ptolomeo Hefaistok aipatzen duen itsas harkaitz harena, hura ere, giza bortxaren erasoak gogor erresistitu arren, eta orobat uraren eta haizearen haserrealdi bortitzenak, **anbulu** zuri deritzan lorearen ukituarekin baino ez baitzen ikaratzen. Zabaldi hori, hitsa, iluna eta hotza omen da eta alaitasun bide bakarra zabaldian hazten diren andalaporru edo **anbulu** zuri deitutako *Asphodelus* generoko loreen edertasuna ikustea omen da. Koro Navarro

Jakin ezazu, Potter, **anbulu** zuriak eta asentsio-belarrak edabe loarazle oso ahaltsua egiten dutela, eta horregatik Hildako Bizien Edaria deitzen zaiola. Iñaki Mendiguren

---

anburu *iz pl* odoluzkia, almorrana.

Ba sekulako kaltea egiten eustalako **anburuetan**. Jon Arretxe

---

anda *iz* bi hagaz eta haien artean ezartzen diren ohol batzuez osatutako tresna, bereziki hilotzak garraiatzeko erabiltzen zena. ik **zerraldo**.

Monjeek, bada, **anda** bat hartu eta bertan ezarri zuten Patchin. Josetxo Azkona

Indarrek amaitua zuten desfilea; hatsik gabeko gorputza soldadu bik **andan** zeroaten hilerri barrura. Edorta Jimenez

Larru finezko estalduraz bilduko dute argimutila tresna guztiekin batera eta **anda** gainean ezarriko. Elizen arteko biblia

Lanetik ei zetozen, esan zutenez, eta sinetsi egin behar, atzean zihoazenek zeramatzaten **anden** gainean zalantzarik gabe gorpuak baitzeuden. Urtzi Urrutikoetxea

Zenbait gizonek erregea jaso zuten, eta lantzen makilen gainean burusiak zabalduz, nolabaiteko **andak** prestatu zituzten hirira garraiatzeko. Laguntzaile batzuek **anda** tolestu bat zeramaten. Agustin Otsoa

Beste batzuk, **anda** gurpildunetan etzanda zeuden. Mirentxu Larrañaga

Lau **anda**-eramaile ikusi zituen ohatila bat zeramatela. Charliek lepoan hartuta eraman zuen Wilkie bide guztian zehar, harik eta behin lubakira heldutakoan, **anda**-eramaileek bila etorri zitzaizkion arte. Koro Navarro

Moilan **andazko** kadira agertua zen, ikatzaren larruko mutil biren beso sendoek ekarria. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **andazko kadira** (3)

---

andabide *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi) iz* hildakoen segizioa egiteko bidea.

Oso sendi gutxik lagundu zion karroza ederrari, lehenengo, San Francisco elizarantz eta ondoren, mendixkako hilerriranzko **andabidean**. ETC-literatura, saiakera

Ez zela komeni herriaren erdi-erditik pasatzea eta **andabide** berria bilatu zutela esan liteke. ETC-literatura, saiakera

Behealdean, **andabidetik**, gurutze bat zihoala gorantz mugitzen, sasien beste aldean, iruditu zitzaion Inasi. ETC-literatura, saiakera

Andabidea esaten zitzaion, bai, baina aspaldi utzi zitzaion bide hori erabiltzeari. ETC-prentsa

Familia, baserria, auzoa, herria... xehe-xehe ikertu zituen, eta hileta zeremoniak kontatu: argia, **andabidea**, onrak, artu-emona, bederatziurrune, ogistie. ETC-prentsa

Familia, baserria, auzoa, herria... xehe-xehe ikertu zituen, eta hileta zeremoniak kontatu: argia, **andabidea**, onrak, artu-emona, bederatziurrune, ogistie. ETC-prentsa

Konponbidea **andabideak** izan ziren. ETC-prentsa

Gorpua bide zehatz batetik eramaten zen elizara, eta ibilbide hori santutzat zeukaten: **andabidea**. ETC-prentsa

Andabide edo hilen bideetatik joaten ziren prozesioan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hiletetan, hilotzak eramateko plataforma, **andabidea** egiteko. ETC-entziklopedia

---

andaerrai *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* pleura.

Anatomian ganga; adibidez, Cupula pleurae izenez ezagutzen da **andaerraiaren** gorengo zati edo muturra. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

andaitz ik **endaitz**.

---

andalari *iz* anda-eramailea, kamilleroa. ik **andari**.

Aita-amak igogailuraino **andalariei** jarraitu eta gelara itzuli ziren. Koro Navarro

---

andalustar *(corpusean ez dago; ETCn **112** agerraldi) izlag/iz* Al-Andalusekoa, Al-Andalusi dagokiona; Al-Andaluseko biztanlea.

Gure Erkidegoko **andalustarrei** doakienez, guztiak filosofoen hitzei darraizkie eta haien iritziei atxikiak dira, gure erlijioaren funtsezko oinarriekin kontraesanean ez dauden artean. ETC-literatura, saiakera

XII. mendean Moseh ben Maimon judu **andalustarrak** sistematikoki berridatzi zuen Talmuda, gai diferenteak bereiziz. ETC-literatura, saiakera

Honela hasten zen: "Neska **andalustar** batekin maitemindu nintzen; ttikia, gaztea, beltzarana...". ETC-literatura, saiakera

Dena den, agronomo **andalustarrek** maiz aipatzen dute landarea beren idazlanetan: hautapenak eta hobekuntzak egiten jardun zuten seinale. ETC-prentsa

Andalustarrak dira darabiltzan lehengai poetikoak, eta arabiar poesia klasikoa du oinarri, baina Bibliako hebreera da erabiltzen duen hizkuntza, horrek dakartzan lotura linguistiko eta literario guztiekin. ETC-prentsa

Ibn Yubair geografo **andalustarrak** bere kroniketan jaso zuenez, musulmanak seguru eta bakean bizi ziren haren agindupean. ETC-prentsa

Bestalde, eslaviarrek alemanei ez zieten hain gogor egin nola egin baitzieten Ebro eta Guadalquivirreko haranetako hiri **andalustar** indartsuek, almoravide eta almohadeen laguntzaz, Espainiako kristauei. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, Pirinioez hegoaldeko menditar baskoiek, 769ko Fronsaceko akordioen ondoren dukerriarekin lotura laxoan, tokian tokiko agintari **andalustarrak** izan zituzten bizilagun hegoaldetik, eta ez da zaila pentsatzea bertako agintariek eta leinuek elkar defendatzeko itunak sinatuko zituztela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alhambra hiri palatinatu **andalustarra** da, Granadan (Espainia) dagoena. ETC-entziklopedia

Andalustar arabiera Al-Andalusen IX. eta XVII. mendeen artean mintzaturiko arabiera dialektoa izan zen. ETC-entziklopedia

Goi Erdi Aroan, Guadiana ibaiaren erdialdeko haranean zegoen **andalustar** hiri garrantzitsu bakarra izan zen. ETC-entziklopedia

---

andaluz *izond/iz* andaluziarra.

Alpujarretan egindako egonaldian denbora sobera izan zuen ohartzeko nola Ama Birjinaren presentzia, bere mila manifestaziotan, *modus vivendi* bat zen, herri **andaluzaren** idiosinkrasiarekin lotutako zerbait: esan nahi baita **andaluz** bakoitza bere Ama Birjinak bizi zuela, nola sinestunak hala ateo bat baino gehiago. Joan Mari Irigoien

Hartan ari zen, bada, atso **andaluza**, hitz eta pitz, guztiek espero zutèn sendagilea, Ander Olaso zeritzana, heldu zenean. Joan Mari Irigoien

-Nola sartu ote da piztia basorat, hura basokoa ez bada, baina zelai zabaletakoa, tigre-bezatzaile **andaluzak** argi eta garbi erran zigunez...? Joan Mari Irigoien

Gabatxo txobinista bat azentu **andaluzarekin** ! Unai Iturriaga

Sarjentu zahar bat, **andaluza** bera, urrumaka hasi zitzaion ama nagusiari, eta konplimenduak egiten zizkion, klasikoetakoak; begiak bi izar "diztirazu" bezalakoak zituela esan zion, eta Utrerako "Konzolazioaren" Andre Mariaren antza zuela, eta almanaketako errepertorioko beste gauza sorta bat ere kontatu zion. Koro Navarro

Andaluza nekazari arraza da, aurpegiko hazpegietan beretan ezagun du; Izan ere, ez al ditugu extremeño eta **andaluz** guztiak prozesioan, Euskal Herrian ate joka...? Joxe Azurmendi

Ez dirudi urruti dagoenik espainiar telesailetan neskame **andaluz** ezjakinak bete izan duen roletik. Iñigo Aranbarri

Orga hartan tigre-bezatzaile bat zetorren, Cádizko **andaluz** hitzontzi bat, gauzen erraiteko laketago zituena bide luzeak -bertze hamaika bidez eta kontrabidez osatuak-, bide laburrak eta xuxenak baino. Joan Mari Irigoien

Espainiera **andaluz** doinuan egiten zuen morroia ekarri zuten gerogarrenera, Euzko Etxera deitzeko esan nion. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
andaluz bat (3)
atso andaluza (3)

---

andaluziar 1 *izlag/izond/iz* Andaluziakoa, Andaluziari dagokiona; Andaluziako biztanlea.

Andaluziarrek zazpi puntu dituzte eta galiziarrek bost. Berria - Kirola

Hor bizi zena, beraz, Montijoko Eugénie **andaluziar** ospetsua? Txillardegi

Idealetan sinesten zuen **andaluziar** gogor bat zen gure aita. Berria - Kultura

Ez zuen aldatu, esate baterako, gure harreman ona herriko industrian lan egitera etorritako **andaluziar** eta extremeñoen seme-alabekin. Bernardo Atxaga

Han elkartzen ziren apopiloak, fabriketako gizonak, edonondik iritsitako horiek guztiak: asturiarrak, galiziarrak, **andaluziarrak**, extremeñoak. Jon Maia

Bai Madrilen bizi den **andaluziarrak** bai oreretarrak beren azkeneko diskoak aurkeztuko dituzte. Berria - Kultura

Andaluziarrak, ikusi dugu Ortega-rengan (baina Wulff-ek ez du Ortega aipatzen!), jende endekatu samarra omen dira: [...]. Joxe Azurmendi

Katalana ez zen bere ofizioko herrikide gehienak ohi bezain handiustea; errioxarrak ez zituen egiati eta astakirten plantak egiten, eta **andaluziarra** ez zen tematzen graziak esaten. Josu Zabaleta

Algaraka, **andaluziarren** abesteko era imitatuz. Pedro Alberdi

Azken konpartimendu batean, mando-manta zaharrak, saski zaharrak, pandero lehertuak eta haririk gabeko gitarrak, zernahi gauza nahasten ziren pilda bulta baten azpitik ikusi nuen, **andaluziarren** mahukak bezala beltz eta kobrez azpildua, distiratsu, fin, navaja baten giderra. Koldo Izagirre

Andaluziarrek ohikoa duten umore eta berotasunarekin hartu gintuen atzo, Santiago Cirugeda (Sevilla, 1971) arkitektoak, Bilboko goiz euritsu eta hotzean. Berria - Kultura

2 (izenlagun gisa)

Gainera, bereziki gogaitu nau **andaluziar** emakume bat izateak argumentuan basko bihurtu nahi duten protagonista. Berria - Kultura

Agertokian, besteak beste, zaldiak, arabiar harresiak, flamenkoaren adierazpenak eta **andaluziar** ikurrak azaltzen dira, arabiar ilargi erdiarekin batera. Berria - Kultura

Burdin langatik patio bat ikusten zen, **andaluziar** estilokoa, harrizko arku eta zutabeekin. Josu Zabaleta

Azpillagaren etxearen atean, pareta beltzetatik zintzilik, pilotan jokatzeko txisterak, txalmak, muturgainekoak, **andaluziar** estiloko zelak ikusten dira. Koro Navarro

Arkitekturaren arloan estilo erromanikoa -bere azkenaldiko etiketak adierazten duenez, aurreko Zibilizazio Heleniko baten azken garaitik heredaturiko gaiaren bariazio bat zena- jada erabat menderatua zuen kanpotik sartutako "gotikoak", jadanik aipatu dugun bezala, abbastar eta **andaluziar** kalifaldien mundu siriakoan sortuak. Iñaki Mendiguren

Andaluziako gudu-zelaietan **andaluziar** musulmanek eta mugaz harantzagoko ibeiar kristau-barbaroek batzuetan kidetasun handiagoa sentitu zuten elkarrekiko iberiar kristauek Pirinioez harantzagoko erlijiokideekin edo iberiar musulmanek Ipar Afrikako erlijiokideekin sentitu zutena baino. egia baldin bazen Mendebaldeko eskola honetako proventzar trobadore aitzindarien ideia eta idealek, baita bertsifikazio eta errimak ere, **andaluziar** musulmanen artean izan zutela sorburua. hilzoriko kultura siriakoaren ordezkari ziren **andaluziar** musulmanengandik hartutako altxorra bertako arabiar lorpena zela, Mendebaldeko poesi eskola baten ondorengo lorpen guztiak inspiratuko zituena Mendebaldeko Zibilizazioaren Aro Modernoaren bukaera arte. Iñaki Mendiguren

3 (izenondo gisa)

Pianista **andaluziarrak** jazzaren erritmoa eta flamenkoaren hizkuntza uztartzen ditu. Berria - Kultura

Jaialdia amaitzeko ekitaldi honetako artista esperatuena gorde dute: Paco de Lucia gitarra jotzaile **andaluziarra**. Berria - Kultura

Zorionez, aurrelari **andaluziarrak** egindako falta adierazi zuen epaileak. Berria - Kirola

Euskal Herriko mugimendu kooperatibistaren goraldian kokatzen da, eta bi etorkin **andaluziar** dira narrazioaren protagonistak. Berria - Kultura

Herri **andaluziarraren** sustraietara jo du eszenaratzea prestatzeko orduan. Berria - Kultura

Gabino lagun **andaluziarrarekin** Mamousineko azken afaria egin genuenean, poz handi bat sartu zitzaidan barruan. Bernardo Atxaga

Gogoratzen naiz ukuiluetako azpiak ateratzen ari ginen goiz batean pazientzia galdu eta maldizio batean hasi zela, gure kide **andaluziarrak** harrituta uzteko moduan hasi ere, eta nik, giroa arintzearren, ez kexu izateko esan niola, arrosarena bezain ederra zela simaurraren usaina. Bernardo Atxaga

Azentu **andaluziarra** zuen hizketan, eta hitz egiterakoan jarrera akademikoak hartzen zituen. Josu Zabaleta

Eldarnioaren eragin miragarria, sukarretan nagoela familia-adar **andaluziarraren** adaxkak berrikusten baititut, nobela eginda berrikusi ere. Edorta Jimenez

Ikasitako hitz berriei doinu **andaluziarra** txertatzen die. Berria - Euskal Herria

Erasorako jokalari aproposak ere badira talde **andaluziarrean**. Berria - Kirola

4 ***andaluziar kopla*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Andaluziar kopla, maiz soilik kopla deitua (gaztelaniaz "copla andaluza") Espainiako Andaluzia autonomia erkidegoko abesti arin mota bat da. ETC-entziklopedia

Tony Zenet (Malaga, 1967) aktorea eta abeslaria da: melodikoa, sentimentala Eszenaratze ausarta eta atsegina proposatzen du: jazz banda bikain batek lagunduta, hainbat musika estilo landuko ditu, **andaluziar koplatik**. ETC-prentsa

5 ***andaluziar zaldi*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Andaluziar zaldia, edo "caballo de pura raza española", Andaluziako bertako zaldi arraza bat da. Iberiar Penintsulako beste hainbat eskualdetara hedaturik zegoen aspaldidanik eta egun arraza mundu guztian barrena hazten da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
talde andaluziarra (3)
talde andaluziarrak (5)

andaluziera *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)* *iz* Andaluzian mintzatzen den gaztelaniaren aldaera.

Andaluziera gaztelaniaren dialektoa da, Andaluziakoa. ETC-entziklopedia

Portugaldarra eta ni ongi konpontzen ginen **andaluzieraz** emanez hitza batak bertzeari. ETC-literatura, saiakera

Antza denez, saio honetako gidoilaririk bikain eta burutsuenei otu zaie Mendebaldeko euskarari ezartzea **andaluzierak** Espainiako telebistako sasoirik ilunenetan betetzen zuen zeregin eta rol bera, hau da, aktorearen erabateko ezjakintasunean eta hizkuntzaren ustezko bitxikerian oinarrituriko umore baldarra eta ergela. ETC-prentsa

Denetariko hizkuntzak entzuten dira lokalean, gaztelania nagusi den arren, ez baitira bezeroen ahoan euskara, **andaluziera**, galegoa eta extremeñoa ere falta izaten. ETC-prentsa

Jarraitzen duzue **andaluzieraz** idazteko arauak sortzen edo etsi duzue dagoeneko? ETC-prentsa

Duela urte asko, ikasle nintzenean, irakasleak esan zidan **andaluziera** espainieraren dialektoa zela, baina orain badakit horrek ez duela zentzurik. ETC-prentsa

Jendeak esandako **andaluzierazko** lau berbatik, pare bat txiste atera zituen. ETC-prentsa

Txirrita bera, ia! Zinema non zegoen galdetu eta, "no hablo va'co", erantzun zidan **andaluziera** itxian. ETC-prentsa

Abertzale erdaldun horietako batzuek errazago ikasiko lukete Andaluzian **andaluziera**, hemen euskara baino. ETC-prentsa

Esan gabe doa, hizkuntzaren kolorea da **andaluziera**, gatza, piperra, gure ondarrutartasuna, baina ez lotsatzeko motiboa inondik ere. ETC-prentsa

---

andaluzismo *iz* andaluziarra izateko nolakotsuna.

Baina demagun, **andaluzismoa**, esana den bezala, jitanismoa dela gehien bat. Patziku Perurena

---

andaluzista *izond* andaluzismoari dagokiona; aldaluzismoaren aldekoa.

PP Alderdi Popularrak eta PA Alderdi **Andaluzistak** kontra bozkatu zuten, azken honek "eskas" iritzita. Berria - Mundua

Alderdi **Andaluzista** eta CCrekin akordioak egitekoaukera aztertzen ari zarete. Berria - Euskal Herria

Europarako Alderdi **Andaluzistarekin** eta CCrekin lan egiten ari gara, eta hauteskunde orokorretan emaitza onak baditugu elkarrekin joan gaitezke. Berria - Euskal Herria

---

andaluzita *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)* *iz* alumina silikatoa.

Andaluzita aluminio Al2silizio Sioxigeno O5 formula kimikoa duen mineral nesosilikato aluminioduna da. ETC-entziklopedia

Mineral hauek mineral indize izenarekin ezagutzen dira eta sillimanita, zianita, estaurolita, **andaluzita** eta granateak dira nagusienak. ETC-entziklopedia

Muga horiek desagertzen den mineralaren izenean oinarritura izendatzen dira (adibidez, klorita-desagerpena eta **andaluzita**-desagerpena). ETC-entziklopedia

Talde honetan **andaluzita** eta silimanita bezalako mineral polimorfikoak daude. ETC-entziklopedia

---

andaluztar *izond* andaluziarra.

Galiziar, **Andaluztar**, Aragoitar eta ere Argentinar batzuek ere. Herria

---

andamio ik **aldamio**.

---

andana *iz* (eskuarki hitz elkartuetan, izen baten eskuinean) taldea, aldra; saila, pila.

Ordutik aurrera esan ohi zuen anaia santu bakar baten bertuteak erdipurdikoen **andana** handia gainditzen duela, argi-errainu bakar batek ilunpe beltzenak desegiten dituen bezala. Askoren artean

Obra horietarik **andana** bat, bai tapizagintzan, bai idatzedergintzan, ikusten ahal da Belokeko frailetxearen sartzean muntatua den erakusketan. Herria

Hiru **andana** gizonetan, bat anderentzat. Herria

Oker handia, alajaina! Gero ezagutzen duzu maitale bat eta segidan beste bat eta denborarekin **andana** ederra, eta konturatzen zara guztiak ez direla berdinak kontu horretan, gehienak itxurakerietan ibiltzen direla. Patxi Iturritegi

Presoen etxekoetarik **andana** bat abisatua izanik, heldu da. Marzel Etxehandi

Gero kartagotarrek elefante bizkar dorredun, izugarri, suge-eskudunei, gerrako zauriak pairatzen eta Martitzen **andana** handiak asaldatzen irakatsi zieten. Xabier Amuriza

Negu hastean lerro-lerro-lerro, ikusten dugu **andana** ederrik, kru-kru eta kru-kru zeruetan doazila. Patziku Perurena

Dena prest zeukan, esan zidanez, itxuraz etsiak jota zeuden gela ilun **andana** luze batean barrena jarraiarazten zidala. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan, izen baten eskuinean)

Iragan azalezin haren, ni sortu aurretik bizi izan zuten ukaldi **andana** haren aurrean zer proposa nezakeen nik, galduriko eleen bilaketari haztamuka baina setati lotzea baino? Joxan Elosegi

Esan liteke kasik, olagarro bat edo oroitzapen **andana** bat akabatzea baino askoz errazagoa dela gizon bat akabatzea, Isabelle. Harkaitz Cano

Jende **andana** bat azaldu zen haren ondotik, Adela benetako artzaina bailitzan eta haiek, berriz, salbu geratutako bildotsak. Bernardo Atxaga

Eguna argitzean, artean ere mendi-hegietan higitzen zen gauetik gizon eta emakume **andana** atera zen, zabaltzen ari den behe-lainotik sortzen ariko balitz bezala. Fernando Rey

Bulta huntan zientzilari eta zozologo **andana** tirriaturik bide dabil aferaren muntaz, harriturik nonbait halakoetan kausitu harrobiaz... Jose Angel Irigaray

Beso **andana** bat abiatu dira Mikelen bi lagunen besarka-tzera. Aingeru Epaltza

Adin oneko gizon **andana** bat oinez dabiltza, segurrenik Iruñea - Zizur - Iruñea eginez. Piarres Aintziart

Beti iruditu izan zait iparra galduta ibiliko nintzela, Charlie alboan izan ezean, eta egia esateko, halaxe nenbilke, etxetik etorri berri zitzaigun soldadugai saldo **andana** harengatik izan ez balitz. Mirentxu Larrañaga

Kabitazioa, entropia, oszilazioak... Eta matematika-formula **andana**. Fernando Morillo

Bi auzo herri ez baitira aise bereizten ahal, izan dadin muga edo ez, Arnegiko erreka horretan, lehenago, zubi **andana** bazen; orain aldiz batzuk moztuak dira. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Euli baten gisara, denda eta azokako argiak erakarririk, jende **andana** pilatzen zen inguruetara jotzen nuen gogotsu, premiazko bainituen jatetxeetarik eta supermerkatuetarik jalgitzen zirenen hots nahasi, ulergaitzak, basamortuan galduak ura duen bezalaxe. Xabier Montoia

Idazki amaigabeen koartada dela eta kontzientzia lasai duten borrero **andana** hori. Harkaitz Cano

"Ez da musik" gelditu nuen, asko pertsona ezagun ibilirik, urte **andana** batez beste emankizun mota bat egin nuen. Menane Oxandabaratz

Nancy-ren lantegia etxearen beheko solairuan zegoen, atzeko aldean, eta leihoek lorategira ematen zuten - lorategia baino gehiago jolasleku txiki bat zen, bazter batean zabuak, beste batean plastikozko txirrista bat eta bitartean jostailu eta gomazko baloi **andana** bat ageri zirela -. Oskar Arana

Bolada hartan Dabidek lanarekin hamaika buruhauste izan zuelako (atentatu **andana** baten eraginez, bizkartzain guztiak gau eta egun mobilizatuak izan ziren) eta ni ere

bulegoan aski lanpetua nenbilelako, kontua da afaria prestatzen hasi arte lagunen oparia ahantzirik izan genuela. Patxi Zubizarreta

Abuztuko beherapenek hasiak behar zuten, emakume **andana** bat ikus zitekeen denda barruan arropak eskuetatik elkarri kenduz, biluzik geratzeko beldur balira bezala. Joxean Agirre

Hantxe baihintzen ikasle **andana** batekin. Javi Cillero

Nako sukaldetik atera ondoan, baserriko haur **andana**, sudurra leihoan itsatsirik buhame familiaren juntari beha zegoen. Itxaro Borda

Bilo-sasi iluna zirudien hura txinaurri **andana** beldurgarria da, eta orain ahoaren barrunbean dabilzkio, eztarrian eta sudur zuloetan gora. Eider Rodriguez

Ekialdeko inperio galtzaileen eremuetan sortu edo berpiztu zen beraz horrela estatu-nazio berri **andana** ederra, hala nola Polonia, Lituania, Letonia, Estonia, Finlandia, Txekoslovakia, Jugoslavia, Errumania, Bulgaria eta Turkia. Piarres Xarriton

Hots horiek guztiak bizi-sentipen bakar batean biltzen ziren nire baitan: irudikatzen nuen etsai-**andana** itzel baten artetik nindoala eta kaliza onik neramala. Irene Aldasoro

Itsas bazterrean, portutik hurbil, hotel moderno **andana** bat eraikia izan zen. Ramuntxo Etxeberri

Unibertsitateak ez du batere iruzkinik egin nahi eskandalu-**andana** bateko azken alea den honetaz (beketan egindako iruzurrak, ikasle-egoitzetan antolatutako prostituzio-sareak...). Oskar Arana

Hareatzan etzanik zegoen, eta baldarki marrazten zuen bertan, eta ezabatzen gero, zeinu **andana** bat, zeinak ametsetako letren gisakoak baitziren, ulertzeko zorian baitzaude eta gero bat egiten baitira. Juan Garzia

Bero itzela eta turista **andana**, ados, baina niri bost. Iban Zaldua

Hainbat aldizkari, egunkari eta irratitan kolaboratu izan du, besteak beste, Egin, Argia, Jakin, Bizkaia Irratia, Euskadi Irratia edo Euskalerria irratian eta euskal literaturari zein euskal kulturari buruzko hitzaldi **andana** eskainia da. Ana Urkiza

Galdera **andana** dute aljeriarrek ere. Xabier Montoia

Ikasle **andana** haren atzetik segitu baitzuen Unibertsitaterantz. Joxemari Iturralde

Tren geltokian, han ziren musika banda militarra, ustez folklorikoak ziren jantziez apainduriko emakumeak eta kazetari **andana**. Edorta Jimenez

Une horretan tiro-**andana** entzuten da, emakumea dardaraz hasten da. Felipe Juaristi

Horregatik, aldi berean atsekabetu nintzen eta aldiberean lasaitu, polizia **andana** bat zarataka erori zitzaidanean gainera, Ospitaletik etxera nindoan arratsalde batean. Hasier Etxeberria

Zer bestela? - geroko utzi zuen egiteko asmoa zuen galdera **andana**, behartzen hasi baino lehen ea nondik jotzen zuen ikusteko. Migel Angel Mintegi

Usoak galdutakoan, urretxindor-**andana** bat azaldu zen, inork ez jakin nondik, airean saltaka bezala, eresi bat zirudienaren nota zorrotzak kantari denak. Felipe Juaristi

Beste hirurek ere abisua utzia zioten, ospitalera joanak zirela, zenduaren ezkont-eraztuna, ohi zen bezala, han atxikia baitzuten eta gainera alarguntsak paper **andana** bat izenpetu behar zuelakoz. Daniel Landart

Hala eta guztiz ere, hats egin nezakeen miraria zirudien arren: bukaerarik gabeko aste **andana** baten ondoan, lehenengo aldia zen hura kalkulagailua sakatu gabe ari behar nuena. Joxan Elosegi

Ikasle **andana** tabernetako ateetan pilatzen da, barrezka, berriketan, garrasika... Sonia Gonzalez

Hala eta guztiz ere, gazur moduko bat txertatu zidan, eta hor barrena gaixotasun **andana** luzea zebilela gogorarazi zidan, plazetan batez ere, uso horiekin guztiekin. Joxan Elosegi

Alabak ulertu ez zion hitz-**andana** arranguratuaz aritu zen gero, bere kolkorako sisibasan. Anjel Lertxundi

Gelatinazko soka bat da muskulu normal bat: zuntz fin **andana** bat. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abere andana (3); **andana atera** (4); **andana atxilotu** (4); **andana bat** (324); **andana bat bada** (5); **andana bat beren** (3); **andana bat bildu** (6); **andana bat egin** (8); **andana bat eman** (4); **andana bat eraikiko** (3); **andana bat ere** (15); **andana bat gertatu** (3); **andana bat zegoen** (3); **andana batean** (10); **andana batean parte** (3); **andana batek** (63); **andana batek ez** (3); **andana batekin** (14); **andana bateko** (5); **andana baten** (38); **andana baten ondotik** (4); **andana batez** (15); **andana bati** (11); **andana batu** (3); **andana bildu** (22); **andana bildu zen** (13); **andana bildua** (4); **andana bildua zen** (3); **andana biltzen** (3); **andana dago** (3); **andana eder** (14); **andana eder bat** (5); **andana eder batek** (4); **andana eder baten** (3); **andana ederra** (26); **andana ederra bildu** (3); **andana egin** (16); **andana entzuten** (3); **andana eragin** (3); **andana gaitza** (18); **andana gertatu** (3); **andana handia** (7); **andana jaso** (7); **andana jaso du** (3); **andana joan** (3); **andana luze** (3); **andana on** (3); **andana pasatu** (3); **andana piztu** (3); **andana pollit** (3); **andana pollita** (16); **apez andana** (4); **argumentu andana** (3); **artikulu andana bat** (3); **atentatu andana** (3); **atxiloketa andana** (3); **auzapez andana** (4); **bazen andana** (4); **beilari andana** (3); **berri andana** (8); **beste andana bat** (3); **bi espos andana** (3); **bizitegi andana** (8); **bizitegi andana bat** (4); **buruzagi andana** (3); **datu andana** (4); **duela urte andana** (5); **eder andana** (5); **eder andana bat** (4); **ekintza andana** (3); **elkarte andana** (8); **emakume andana** (7); **emakume andana batek** (3); **eraso andana** (4); **erreakzio andana** (5); **espos andana** (4); **etxe andana** (4); **euskaldun andana** (5); **ezagun andana** (3); **gai andana** (4); **galdera andana** (5); **gazte andana** (26); **gazte andana bat** (15); **gazte andana batek** (4); **gizon andana** (7); **gizon andana bat** (4); **haur andana** (20); **haur andana bat** (6); **hautetsi andana** (8); **hautetsi andana bat** (3); **herri andana** (6); **herritar andana** (9); **herritar andana batek** (3); **hiru andana** (4); **hiru bizitegi andana** (3); **hitz andana** (5); **horietarik andana** (7); **horietarik andana bat** (4); **hots andana** (3); **huts andana** (3); **idazle andana** (6); **ikasle andana** (9); **ikasle andana bat** (3); **jende andana** (84); **jende andana bat** (13); **jende andana batek** (4); **jende andana batu** (3); **jende andana bildu** (15); **jende andana handia** (3); **jende andana pollita** (5); **kantari andana** (7); **kantu andana** (6); **kantu andana bat** (4); **kazetari andana** (7); **kide andana** (3); **laborari andana** (7); **laborari andana batek** (3); **lagun andana** (13); **lagun andana bat** (3); **laiko andana** (3); **lan andana** (5); **lan andana egin** (3); **langile andana** (10); **lerro andana** (4); **liburu andana** (4); **marrazki andana** (3); **material andana** (3); **mezu andana** (3); **militante andana** (3); **multxo andana** (3); **obra andana** (5); **partida andana** (5); **politikari andana** (3); **polizia andana** (5); **preso andana** (3); **sari andana** (4); **segundo andana** (4); **soldadu andana** (5); **talde andana** (7); **tanto andana** (4); **tiro andana** (3); **txalo andana** (4); **txar andana** (3); **urte andana** (33); **urte andana bat** (14); **urte andana batez** (7); **zale andana** (3); **zibil andana** (3)

jende andanak (14)

andanatto bat (5)

---

andanaka *adlag* andanetan; kopuru handietan. ik **aldraka**; **samaldaka**; **saldoka**.

Ez dute uste kaltegarria denik kumeak **andanaka** egitea. Oskar Arana

Jokolariak talde edo **andanaka** aritzen ziren, batzu besteen kontra. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baionesen elkartasuna handizki agertzen da: hiritarrek eskaintzen dituzte jantziak **andanaka**, etxeko tresna eta mubleak ere bai. Herria

---

andanaño *iz adkor* andana txikia.

Badira ere Hendaian bildu direnak eta **andanaño** bat Daniel Poulou deputatuaren etxe aintzineraino itzuliño bat egin duena. Herria

---

andanatto *iz adkor* andana txikia.

475 lagun arrastatuak izan ziren, gau hartan eta biharamunean, beste **andanatto** bat ondoko egunetan. Herria

Horietarik **andanatto** bat bildua da aste huntan Donostian. Herria

Donibane Lohizunen,joanden igandeko meza nagusian, bazen aldarearen ondo hartan usaian ez bezalako apez eta apez-gai **andanatto** bat, eta kasik denak arrotzak. Herria

Besteak beste, hautetsietan, Frantxua Maitia, Max Brissoneta Jean Lissar, bai eta auzapez **andanatto** bat. Herria

Gaineratikoentzat eta xehetasun guzietan sartu gabe, huna hitzordu **andanatto** bat: [...]. Herria

---

andante *(orobat **Andante**)* **1** *iz* musikan, tenpo aski geldia.

Andante-an, bigarren mugimenduan, orkestra eta bakarlarien arteko unisonoa sendo eta hausturarik gabe jo zuten. Berria - Kultura

Horri *cadenza* jostalariak eta erromantikoak gaineratu beharko genizkioke haizezko oboe, xirula eta fagotaren laguntza egokiarekin, bigarren zatian, **Andante** -an. Berria - Kultura

Atsedenik gabe, bigarren mugimenduari, **andanteari** , ekin zioten musikariek, eta isiltasuna ez zen atertu gelan, isiltasunak hantxe segitu zuen. Felipe Juaristi

Beethovenen hamabigarren sonatari ekin zion gero, eta fughettarekin ez bezalako giro barea lortu zuten berehala aurkezpeneko **andante** aldaeratsuaren konpasek. Anjel Lertxundi

Egun batean 'tristezza' sakon batekin iritsi nintzen entsaiora, eta **'andante'** jo beharreko pieza halako 'dolcissimo' makal batekin hartu nuen; harrituta, pieza haren egitura eta harmoniak tempo goibel hartara 'agitato' jostarinera baino hobeto egokitzen zirela ikusi nuen. Pako Aristi

Zortzikoteak modu orekatsu eta ia biribilean jo zuen atariko Allegro tragikoan, gero **Andante** baretsuan, Minuetoren contrapuntoan eta azken ustekabean tonu ilunetik distiratsura doan Allegroan. Berria - Kultura

---

andantino **1** *iz* musikan, andantearen eta allegroaren arteko tenpoa.

han zeuden konposatzaileek, aurpegi margotuari azkenean malkoak jartzen dizkion umeak bailiran, partituretan banatu zituzten hitzak: 'larghetto' lasaia, **'andantino'** biziagoa, 'appassionato' kitzikaria, 'morendo' hilgarria, 'dolcissimo' ezin samurragoa, 'disperato' etsipendua, 'mezzo forte' indartsua... eta beste asko. Pako Aristi

---

andare *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* panpina.

Neskatila batek galtzatxoak aztertu zituen: "Nire **andareareenak** dira!". ETC-literatura, saiakera

Batzuek **andare** eta panpinak ibiltzen zituzten. ETC-prentsa

---

andari *iz* andak eramaten dituen pertsona.

Beste erremediorik ezean mekanikari, mediku, artzain, **andari** bihurtu dira. Josu Zabaleta

Haatik, 1918ko uztailaren zortzian, Fossalta di Piave-n **andari** zereginean ziharduela, beraren inguruan leherketa itzela gertatu eta hantxe amaitu zitzaion guda. Edorta Jimenez

---

andarka *adlag* zabuka, aldaroak eginez.

Haizea gorputz ezkutua da, itsas-lehorrak, baita ortziko hodeiak ere, arrastatzen eta bat-bateko zirimolean **andarka** daramatzana, eta hauen lasterra eta hondamengintza uraren izate gozoaren antz-antzekoa da, hau bat-batean uhol gainezkatuan abiatzen denean eta, euri ugarian handiturik, mendi goietatik urjauzi handian oldartzen denean. Xabier Amuriza

Erretore etxeraino joan zen **andarka** , mozkorra iduri, ateko guardari agindu zion zaldia zela zezan eta lau hazka atera zen Uztaritzerantz. Elena Touyarou

Nireak, euskararen bizigai izan daitezen, harenak baino pixka bat luzeagoak izango dira, zuzenean emanak sigi-sagan eta **andarka** ibili gabe, baina murritzagoak ere kopuru aldetik, hola zu bezalako irakurle gaztea asperrak eraman ez dezan. Pello Salaburu

---

andazain *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi) iz* andak eramaten dituena. ik **andalari**; **andari**; **angarilari**; **kamillero**.

Andazainak agindutako solairuan gelditu da igogailua. ETC-literatura, saiakera

Ez, ez nintzen medikua, ospitaleko **andazaina** baizik. ETC-literatura, saiakera

Zalditik jaisten ikusitako norbaitekin hitz egin nahi nuen, **andazainaren** laguntzarik gabe odolusten edo ostaturen bateko jangelan kartetan jokatzen ikusi zuen norbaitekin. ETC-literatura, saiakera

Euskaldunek atseden pixka bat hartu ahal izan zuten, Jean Saint-Pierre apaiz, idazle eta **andazainak** Eskualduna astekarira igorri zuen lehen gutuna irailaren 12an baizik ez zuen idatzi. ETC-literatura, saiakera

Brigadista bezala alistatu eta **andazain** ibili zen. ETC-prentsa

Ekografia egiteko gelara daramatela, hatzarekin gidatzen ditu **andazainak** : "orain zuzen, gero ezkerrera". ETC-prentsa

Hauxe irakur daiteke oroitarrian idatziriko testuan: "Gurutzeko Gorriko **andazain** heroikoei eskainia, Orokietan 1872ko maiatzaren 4an eta 5ean eginiko ekintza humanitarioaren omenez, zeinaren bitartez egungo erakunde txalogarri honen osasun tropek beren odolezko bataioa jaso zuten". ETC-prentsa

Josefa ospitaleko barne-medikuntzako atalera eramatera etorri den Mikel **andazainak** irribarre batez agurtu du emakumea. ETC-prentsa

Andazainak ezin zirenez hurbildu, anaiak ni heldu eta arrastaka atera ninduen". ETC-prentsa

Arrazoia da ez dagoela jenderik **andazain** (andero) lanetarako. ETC-prentsa

---

anddere *iz adkor* anderea.

Delako **anddererean** miresmena bere ilobarenganako harrigarria izan zitzaigun beti gainerako taldekideoi. Aingeru Epaltza

---

anddereder (corpusean **andereder** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian **anddereder** agertzen da) *iz* erbinudea.

Animaliak ere lagunak zituen, guzti-guztiak errespetatzen zituelako, elefanteak, ziminoak, katuak, **anderederrak** , azeriak. Gotzon Garate

---

andeagarri *izond* andeatzen duena.

Energia atomikoa, bonbena zein zentralena; industria gehiegia, kutsadura, berotegi-efektua, itsas zolaren zulaketaz baliaturiko petrolio-indusketa; hots, munduaren **andeagarritzat** jotzen dugun guztia. Juan Garzia

Iritzi publikoak begitan hartzen du beraren ustez munduaren **andeagarri** den oro; zientzialarien zoramenetik eta haien hybrisetik sortua dela deritzon oro. Juan Garzia

Gurasoen arteko iskanbilak eta liskar bortitzak barren-barrenean markaturik geratu ziren Guyrengan, gizakiaren zorian izan zezakeen esperantzaren **andeagarri** . Josu Zabaleta

---

andeatu, andea(tu), andeatzen **1** da-du *ad ipar* hondatu, alferrik galdu.

Hugok beldurra erakusten du, hain leku zoragarria berehala modan jarriko dela eta dena **andeatuko** dela, Paris txiki baten antz faltsua hartuz. Koldo Izagirre

Ikusmenaz, entzumenaz, dastamenaz eta usaimenaz arduratzen diren sentipen-organoak **andeaturik** egongo dira ziur asko egungo gizakietan, orain ez baitira lehenengo garaietan bezain baliotsuak bizirik irauteko. Irene Aldasoro

SNCFk salaketa ezarri du demoen kontra ondasunak **andeatzeagatik** . Berria - Euskal Herria

Hiru haien ateak **andeatuak** ziren, ez ziren hesten ahal. Eneko Bidegain

Marmar dihardu ezen antzinako jendeak, pietatez beteak, bizitza erosoagoa zeramala eremu estuagoetan, bakoitzari zegokion lur saila askoz txikiagoa izan arren; ez da konturatzen apurka-apurka dena **andeatuz** eta hondatuz doala, bizitzako ibilbide aspaldikoak ahitua. Xabier Amuriza

Hugok beldurra erakusten du, hain leku zoragarria berehala modan jarriko dela eta dena **andeatuko** dela, Paris txiki baten antz faltsua hartuz. Koldo Izagirre

Bazirudien fraka bera ere apur bat zaharkiturik zegoela, eta britxka, kotxezaina, lekaioa, zaldiak eta zaldi-tresnak, berriz, higaturik eta **andeaturik**. Jose Morales

Badira aspaldian deika eta frangotan oihuka ere ari zaizkigunak, xahu girela hola segituz, guhauren faltaz Lurra ari dela **andeatzen**, hola segituz jendearentzat ezinbizia izanen dela Lur huntan! Herria

Haurrak itsuski gastatzen direla, gastatzen eta beraz **andeatzen** azkenean. Herria

Osasuna **andeatzen** ari zitzaion. Oskar Arana

Den bezala, hein batean begiratzen du, ibiltzeko doia bederen, ezen euriketa gaitzek urtean barna egin dugun lana **andeatzen** dute. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Holako manerak publikoki salatzen ditut, jendea **andeatzen** eta desohoratzen baitute, gizontasunaren trahitzea baita. Michel Oronoz

Filologoak pazientzia galtzen du, petraldu egiten da nahi baino gehiagotan, ikusten duelarik hainbeste dotrinarekin, hainbeste interpretaziorekin (kasik testurik ere behar ez duten hainbeste interpretaziorekin) hitzak alferrik galtzen dizkiotela eta **andeatzen**. Iñaki Segurola

Barnean zihoazen bi poliziek ondasunak ez **andeatzeko** eskatu zieten. Berria - Euskal Herria

2

Aski **andeaturik** kausitzen baitziren ikasgelak, hainbeste urtez baliatuak, oraingo garai modernoak galdatzen dituen neurrieri jarraikitzeko Herriko Etxeak eskatu zion nafar gobernuari eskola berri baten egitea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Handizki **andeatua** zen auzoetarik bateko hotelean hiru gau eta egun iragan zituzten, Marokora zihoan kamioi bat etorri bitartean. Eneko Bidegain

Bere gisakoren bat inondik ere, oso ikasia, itxuraz **andeatu** samarra zirudiena. Josu Zabaleta

3 (era burutua izenondo gisa)

Horrek guztiak ez zuen bion arteko harmonia **andeatua** lehengoratu. Aingeru Epaltza

Ingalaterran, gauza berriek ere, zurezkoak eta adreilu gorrikoak direnean bereziki, denbora gutxi behar dute antzinatasun aire **andeatu** baina noblea izateko. Ramon Saizarbitoria

Hiri honetako adimen **andeatuek** beren zoroa saldoratzeko aurkitu dituzten bertze zenbait kofradiaren berri aski zehatzaz eskolatzen ahalko zen biharamunean gure irakurlea. Aingeru Epaltza

Bagoi **andeatuetarik** bat Joanes garraiatu zuena zen. Eneko Bidegain

Basakeria **andeatu** gisako batera ari gara itzultzen. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **andeatzen ari** (10)

---

andeatzaile *izond* andeatzen duena.

Melinga eta Gelbera abokatak, Putrus garraioburu eta Karrankaguenka mandazaina, eta Trebukari eta Apo Kardanga politikari **andeatzaileak**. Jose Angel Irigaray

---

andeatze *iz* hondatzea, alferrik galtzea.

Beldurra (eta gizonik ausartenek ere izan dezakete beldurra), izumenezko gauza bat da, sentipen lazgarri bat, arimaren **andeatzea** bezala, pentsamenduaren eta bihotzaren estura ikaragarri bat, gogoratzeak berak larriminezko ikarak eragiten dituena. Josu Zabaleta

Zeituneko auzunetik landa, krimen gehiago burutu dituzte Rafan eta dozenaka martiri eta zauritu erori dira, gure azpiegitura eta ondasunek, sekulako **andeatzeak** pairatu dituztelarik. Berria - Mundua

Harentzat, eboluzioaren eta hautespen naturalaren prozesuek etenaldirik gabe funtzionatzen zuten, batzuek giza espeziearen **andeatzerantz** bultzatuz, beste batzuek haren hobetzerantz. Juan Garzia

Andeatze-mota guztiak zeutzan hantxe, baita seguru aski inoiz loraldira iritsi gabeko beste hainbat dohain ere, emakume amerikar kosmetikaren kreatura haiengan gorpuzturik. Joxe Austin Arrieta

---

andel **1** *iz* depositoa.

Aski da autoaren **andela** betetzera joatea. Berria - Ekonomia

Andel bete gasoliok, hortaz, 50 euro eskas. Berria - Ekonomia

50 litroko **andela** bete erregaik, beraz, 53,75 euro. Berria - Ekonomia

Haztegi handiaren parean gelditzen zen, non arrain biziak gordetzen diren erreserban; ur xirripa bana erortzen da erdiko ontziaren lau angeluetatik, eta ura mantso-mantso isurtzen da giltzaz itxitako **andeletako** estalkien azpitik, betiereko korronte baten hots eztia ateratzen duela. Karlos Zabala

Baso horiek hodei eta behe lainoen hezetasuna erakartzeko gaitasun berezia dute; ondorioz, inguru horietan bizi diren gizaki eta animalientzako ur **andelak** direla esan dezakegu. Berria - Gaiak

2 ***andel-ontzi*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Tangaontzia edo **andel-ontzia** ontziratu gabeko likidoak garraiatzeko erabiltzen den merkataritza-ontzi mota da. Mota askotako tangaontzi daude; ezagunenak petrolio-ontziak, gas-ontziak eta kimiko-ontziak izanda. ETC-entziklopedia

3 ***lurrun-andel*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Lurrun-andelak dituzten galdaren kasuan, hori, normalean, egia da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anden *iz* tren edo metro geltokietan, bidaiariak eta zamak bagoietara sartzea edo bagoietatik ateratzea errazteko, trenbidearen alboan eraikitzen den plataforma. ik **nasa**[1].

110. Street-eko geltokiaren argiak eta **andena** agertu ziren. Iñaki Zabaleta

Errenkada galduetan kanporatzen ari ziren eta, laster, azkenaren bizkarra eskaileretan ezkutatu zenean, hutsik geratu zen **andena**. Iñaki Zabaleta

Geltokira heldu eta **andenean** aurrera abiatu zen irteerarantz. Iñaki Zabaleta

Bidaiariok **andenera** goaz, geltoki barrurako bidean. Berria - Euskal Herria

Geltokiko **andenera** ur zaparradak erortzen ziren lurrazalera ematen zuten burdinsareetatik. Iñaki Zabaleta

Estazioko **andenetatik** ez zuen bagoien gurpilik ikusten baina handik bai; pribilegiatua zen han. Unai Elorriaga

Gandiagak urte batzuk geroago esan zigunez "metroko **andena** ez da egokiena poemarik idazteko", baina bakoitza ahal den moduan moldatzen da, eskura duenarekin. Pello Salaburu

---

anderauren *iz* aitonen alaba, eskuarki gaztea.

Zuhaur ezen, Andere Katalina Erreginaren **anderauren** izanik, nik neuk galdu nuelarik munduratu ninduen ene ama, gogoratu zitzaizun, ene bizimoldea kontutan hartuz, eta begiratuz, zu ene ama izatea. Piarres Xarriton

andere *(ETCn **12.410** agerraldi)* **1** *iz* andrea; emaztea.

Zeren naturak **andere** gisan gobernatzen baitu, eta bere ´desbideagatikª gaude historiara, historia pentsagaitzera zabalik. Xabier Amuriza

Eta hona non **andere** batek ematen dion, 21.000 libera. Xipri Arbelbide

Atea emeki-emeki zabalduz, mirailaren aitzineko alkian jarria, bazekusan lur honetako **andereetan** politena, ile luze urreztatuen orraxtatzen ari zela: Aurelia Arkotxa

Jakin behar da ber garaian, Manilako Jai Alaia kudeatzen duen erakundea Marcosen **anderearen** familiaren menpe pasa zela. Ramuntxo Etxeberri

Ero eta zentzudun, edozeinen aurrean jabetu behar du zaldun ibiltariak, **andereen** izen onagatik. Juan Kruz Igerabide

Europako lirika zaharra, **andereena** zen, batik bat, eta beren kantuak ernalindar eta amodio festetakoak omen ziren, beraz paganoak. Patziku Perurena

Hika mika anitzen ondotik, aberea, Salieseko SPA delakoaren esku uztea onartu zuen **andereak**. Itxaro Borda

Jainkoaren aitzinean agindu nion bere **anderea** izanen nintzela herioak biak banatu arte, eta horren egiteko asmoa dut. Xabier Montoia

Halakoetan, burua sartzen nuenarekin batera, diosala egiten nion bertako **andereari**, eta esku bat barrurantz luzaturik, gaztaina koloreko egunkari bat ateratzen nuen kalera. Pedro Alberdi

Hurreratu egin zitzaion **anderea**. Koldo Izagirre

Astelehen eguerdian, frantziar estatuko Kultur Ministerioan, ministro **andereak** hartu gaitu eta, ohiko hitz politen ondoren, ongi etorriak eta bidaia-on desioak banan-banan hartu ditugu herri ezberdinetako idazleok. Edorta Jimenez

Eguraldi txarrik ezean, saltzaile berantiarrenek ere beren liburu-txosna hamaiketarako zabaltzen zutela adierazi zidan hoteleko harrerako **andereak**, hiriko informazio-bulegoetara alferrikako dozena erdi-edo telefono-dei egin eta gero. Anjel Lertxundi

Eta **andereak** erantzun zion: -Zergatik ahazten duzu, jauna, tartean dagoen beste geltokia? Anjel Lertxundi

Zuzendariak **anderearen** agindua jaso ahala, orkestrako kantaria irtenarazi zuen oholtzara, eta, Frank Sinatra, Elton John eta Paul Mccartney-ren konposizioak interpretatzeari ekin ziotelarik, bere onera itzuli zen festa lasterrean. Josetxo Azkona

Baina juduek **andere** handiki jainkozaleak eta hiriko jauntxoak berotu zituzten, eta Paulo eta Bernaberen aurka erasoaldia sortu eta beren lurraldetik kanpora bota zituzten. Elizen arteko biblia

2 **Andere** pobretasun santua, Jaunak gorde zaitzala zeure ahizpa apaltasun santuarekin! Askoren artean

2 (izenondoekin)

-Ene **andere** prestua -mintzatu zitzaion jeinua-, zure eztei gauean bahitu zintuen honek lo apur bat egin nahi luke! - eta burua neskaren magalean pausatu zuelarik, hankak itsasoraino luzatu, eta lo trinko geratu zen. Patxi Zubizarreta

Martha Gellhorn **andere** fin-dotorearekin duen afera plazara irtengo da apirileko lehenetan. Edorta Jimenez

"Arrosa zuri-gorri idien apatsek zapaldua bezalakoak" direla **andere** errukarri horiek... Agurtzane Juanena

- Baina nire **andere** maitagarri hori, nire ohoreagatik zin egiten dizut... Lopez de Arana

"Gero eguzkitan, berokia besoetan dugula, lotsa-lotsa ibiltzeko? ", esaten zidan behin egunero Donostiatik Bilbora joan behar zuen euskal **andere** prestu batek. Pello Zabala

-Ez, ez dago -erantzun zidan **andere** xahar batek. Txillardegi

- **Andere** aberatsen soinekoa. Anton Garikano

Horretarako prestatu den erlauntzara sar dadin, **andere** ederra deitzen zaio. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egun batez, itsaso gaziaren ertzean lasai ederrean zeudela, bat-batean jeinu bat agertu zen eta kutxa batetik **andere** xarmant bat atera zuen. Patxi Zubizarreta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dudarik izanez gero, Togasen joan-etorri kezkatiei so egitea aski nuen: Eskalatzailearen bulegotik gerentearenera eta gerentearenetik langile batzordeko buruarengana karrika-dantzan, Anaren **andere**-xakur, nagusiaren irriñoa sari. Aingeru Epaltza

4 (deiki gisa)

-Arratsalde on, **andere**. Xabier Aranburu

"Noski, **anderea**! " esan zion besteak jendetasun handiz. Koldo Izagirre

- **Andere**: hori esan dizunak ez dizu egiarik esan. Juan Kruz Igerabide

-Oso eguraldi ona egiten du, **andere**. Juan Martin Elexpuru

"Barka, **anderea**, Bolton kapitainaren alaba zara? ". Koldo Izagirre

Gurean ez dago astebururik, **andere**, ezta lanegun zehatzik: asteko guztiak izan daitezke jaiegunak edota lanegunak. Migel Angel Mintegi

-Egunon, **Andere**. Martin Anso

Bai, **andere**, sufritu egiten dut, eta okerragoa dena, gero eta gehiago. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

5 izenaren eskuinean erabiltzen den gizalegezko hitza.

Marmolezko mahai handiaren ertz baten ondoan Maria **anderea** zegoen, dena beltzez jantzita baina mantala eta kofia ezin zuriagoez hornitua. Joxemari Iturralde

Beharrik, dagoeneko bat baizik ez dut falta kontakizuna borobiltzeko: Hilde **anderea**. Alberto Ladron Arana

Kintana **anderea** eta Racionero jauna, beraz, libre dira, nire aldetik behintzat, delitu horretatik. Joxerra Garzia

Eraman itzazu maletak Macarena **anderearen** gelara. Joxemari Urteaga

Gauza onik ez dator Kubatik Jaimes Branger **anderearentzat**: Pako Aristi

Ipethea Badria **anderea**, herenegun hil zen 55 urteetan, Urdaspalen, telebistitis kronikoak - gaitz ergela - joa. Jose Angel Irigaray

6 (ezkerrean)

Jarraian Valladolidera igan zen, han **andere** Juana printzesa gobernadoreak Leongo san Isidro eta Parraceseko Santa Maria agustindar bi komentuen erreforma eginarazi baitzion. Piarres Xarriton

Nulla dies sine linea, jaun Burugogor eta **andere** Pazientzia lankide. Joan Mari Irigoien

7 ***andere-belar*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Begonia edo **andere-belarra** ("Begonia") Begoniaceae familiako genero baten izen arrunta da, 1.400 espezie inguru dituena. Klima azpitropikal eta tropikal hezeko eskualdetan jatorria du. ETC-entziklopedia

Andere-belarrek balkoiko barroteak estaltzen dituzte. ETC-literatura, saiakera

Kerejetak dio 2008. urtera arte "betiko" landareak jartzen zirela: alegriak, geranio, **andere belarrak**, petuniak eta surfiniak. ETC-prentsa

8 ***andere esposa***

Bat almirantea zen, bere **andere esposarekin**. Eneko Bidegain

Santa Mariade la Almuneda katedralean egin da ezkontza haundienean, jaun esposak 36 urte eta **andere esposak** 31. Herria

9 ***andere handi***

Larunbat honetan, "Eva Peron» **andere handi** haren azken momentuak, zeken eta ustelak izan ba lira, antzerki hau egiazkoa izanen zen. Herria

Galeusca oroigarri baten karietara han egon nintzen, poetetan poetena ziruditan galiziar letretako **andere handiari** begira, aldi berean umil eta mireskor. Berria - Kultura

Eta Dulzinea bezalako **andere handi** baten askatasuna, ez da deus gutxian eta merke zuhurrean erosteko gauza; eta ohar Santxo, ez dutela meriturik eta deusen baliorik errukizko egintzak baldin eta epel eta nagi antzean egiten badira. Patxi Ezkiaga

Uholdeetatik bizirik atera zen gizon bakarra eta **andere handi** bat zaldi zuri baten gainean zamalkatzen zituan. Lopez de Arana

Graeme **andere handiak** berak, beti agintzen ohitutako etxekoandreak, erregu egiten ziola Sweet Williamen heriotza-oheraino joan zedin. J.M. Olaizola "Txiliku"

10 *andere handiki*

-Nire ezkutariak esanda jakinik nago, andere eder horrek zure handitasuna xehaturik daukazula eta deseginik zure izate guztia; izan ere, **andere handiki** eta erregina izanik lehen, andereño soila bihurturik baitzaude orain. Patxi Ezkiaga

Baina juduek **andere handiki** jainkozaleak eta hiriko jauntxoak berotu zituzten, eta Paulo eta Bernaberen aurka erasoaldia sortu eta beren lurraldetik kanpora bota zituzten. Elizen arteko biblia

11 *andere handizki*

Alabaina, hemen herri guztian printzesarik ez dela batere bizi nago ni; **andere handizkiak** bai, eta, horixe, bakoitza bere etxean printzesa izan daitekeela. Patxi Ezkiaga

12 *andere mahats* fruitutzat mahatsaren antzeko ale garratzak ematen dituen zuhaixka *(Ribes sp.)*

Andere mahatsa jaten ari zen, fruituaren zukuak ahoa zikintzen zion kokotseraino eta sudurreraino. **Andere mahats** gorria, **andere mahats** beltza, hurrak barrez ari ziren begitarte lotsagabez. Karlos Zabala

Andere mahatsaren zainetan bere odol gorri pixka bat isurtzen uzten zuen. Karlos Zabala

Tarta bat masusta gorriz eta **andere-mahatsez** betea. Josu Zabaleta

Andere mahatsezko ardoa. Isabel Arrigain

Andere-mahats gorrizko errona. Iñaki Mendiguren

Andere mahatsezko likorea arratsean erosten zuen, goizean "makal" sentitzen zelako aitzakian. Karlos Zabala

Dezente bota zion **andere mahats** likoretik eta pattarretik gutxiago. Karlos Zabala

13 *andere mahats beltz*

Andere mahats gorria, **andere mahats beltza**, hurrak barrez ari ziren begitarte lotsagabez; eta, mahatsez beteriko saskietan, mordo handiak, mozkorkeriaz mukuru, zumearen ertzean zorabiatu eta beren aleak, eguzkiaren atseginzaletasun beroegiak gorriturik, erortzen uzten zituzten. Karlos Zabala

14 *andere mahats gorri*

-Hortaz, **andere-mahats gorrizko** errona zuretzat, ministroa. Iñaki Mendiguren

Andere mahats gorria, andere mahats beltza, hurrak barrez ari ziren begitarte lotsagabez; eta, mahatsez beteriko saskietan, mordo handiak, mozkorkeriaz mukuru, zumearen ertzean zorabiatu eta beren aleak, eguzkiaren atseginzaletasun beroegiak gorriturik, erortzen uzten zituzten. Karlos Zabala

15 *andere-mahats zuri* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Andere-mahatsak "Ribes" generoko zenbait zuhaixka txiki dira. Fruituak jangarriak dira, sukaldaritzan oso estimatuak, batez ere andere-mahats gorria, **andere-mahats zuria** eta andere-mahats beltza. ETC-entziklopedia

16 *andere serora*

Usaia zahar bat omen zen, **Andere serorak** untsa betetzen zuena. Herria

Andere serorak bazituen aldare gainean zenbait xirio piztuak eta zeremonia bururatuta hiltzen zituen bat bertzearen ondotik eta usain hura hedatzen zen eliza guzian. Herria

17 *andere xuri* *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Andere xuri horien edertasun minerala! ETC-literatura, saiakera

Nire iduriko, errazena eta sinesgarriena izanen da alegia bikote musulman muridoa garela agerraraztea -zu bezalako **andere xuri** ederrak ikusten dira han, berriki konbertituak eta beren senarrarekin Meskita Handira beila egiten-. ETC-literatura, saiakera

Neska hura, bortu elurra bezain ederra, ez dea **andere xuria**? ETC-literatura, saiakera

Taularen gainean iragan diren guziak txalotuak izan dire bainan erranen dut gure **andere xuri** eta beltxak ukan dituztela txalo beroenak. ETC-prentsa

Ez pentsa **andere xuria** dela herabe. ETC-prentsa

Mitoek eta gezurrek hazi dituzte inperioak, gu gure Lamin zulo edo erreketako Mari polit eta harpeetako **Andere Xuriekin** ginenean oraindik. ETC-prentsa

andere xuria, Maskaradetako pertsonaia. ETC-entziklopedia

18 *jaun-andere* *pl*

Portugaleko Errege eta Erregina **Jaun Andere** ospetsuek. Piarres Xarriton

Jaun-andere batzuk auto urdin beltz aire batean, ez dea hala? Janbattitt Dirassar

Lurreko eta zeruko **jaun-andere** boteretsuak, otoi, egizue otoi, egun batez, Xanti ene kontra besarka dezadan! Michel Oronoz

· Esker onez [...] agurtu nituen bi urtez bizilekua eta mantenua doan eman zizkidaten Duhau **jaun-andereak**. Txillardegi

· Etxeko **jaun**-andereak ez dira oraindik itzuli, beraz, zatoz barrura. Xabier Paya

19 *ministro andere* *(orobat **andre**)*

Alliot-Marie **ministro anderearen** arabera. Herria

Ez dut uste, ordea, Pilar del Castillo **ministro andereak** hartu duen bideak ezer konponduko duenik. Joxerra Garzia

Marie-Georges Buffet, kirol eta gazteriaren **ministro andereak** jakinarazi du ez duela onartzen holako zigorrik, manifestaldira joanez neska horrek erakutsi duela zer pentsatzen duen eta ez zaiola kentzen ahal daukan askatasuna. Herria

Ulergarria ba Kultura **Ministro Anderearekin** gertatua. Edorta Jimenez

20 *polizia-andere* ik **poliziakide**.

Polizia-andereak besoak altxatzen zituen: zer gehiago egin? galdezketak zirauela, **polizia-andereak** etsaien izen-deiturak eskatzen zizkieten eta behaztopatzen ziren, ez zekiten, mutu zeuden. Itxaro Borda

21 *profeta-andere* ik **profetesa**.

Miriam **profeta**-andereak, Aaronen arrebak, danbolina hartu zuen eta ondotik joan zitzaizkion emakume guztiak ere, danbolina joz eta dantzan. Jose Antonio Mujika

22 *sultan andere* *(corpusean **sultanandere** soilik)* *iz* sultanaren emaztea.

Sultanak alaba oso aldarte petralarekin topatu zuen, eta **sultanandereak** ezin izan zituen sinetsi alabak kontatutako xelebrekeriak. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

andere auzapeza (12); **andere auzapeza eta** (9); **andere auzapezak** (38); **andere auzapezaren** (8); **andere bat** (22); **andere batek** (7); **andere dukesak** (7); **andere dulzinea** (9); **andere eder** (7); **andere esposaren** (8); **andere gazte** (12); **andere gaztea** (8); **andere graziana** (8); **andere hau** (7); **andere hori** (24); **andere horrek** (12); **andere jaunek** (22); **andere serora** (7); **andere xarmant** (9); **andere xarmant bat** (7); **beste andere** (8); **bi andere** (9); **ene andere** (7); **eta andere** (34); **etxeko andere** (12); **gure andere** (15); **jaun andere** (35); **nire andere** (18); **zen andere** (7)

etxeko anderea (8); **gure anderea** (7)

---

andereder ik **anddereder**.

---

andereino ik **andereño**.

---

andereño *(ETCn **7.985** agerraldi; orobat **andereino** g.er.)* **1** *iz* ikastoletako maistra; andre ezkongabe edo gazte bat aipatzeko eta hari hitz egiteko erabiltzen den hitza.

Zarauzko ikastolan sartu nintzen **andereño**. Ana Urkiza

Lantziegon ikastolako hiru **andereño** hil dira auto istripu batean. Iñigo Aranbarri

Umeak jolasean zebiltzan, laurak elkarrekin; **andereñoa** eta Buresch andrea eguraldiari buruzko aipamenak ari ziren ematen bata besteari. Anton Garikano

Jakintza ikastolako **andereñoak** hainbat igaliren irudiak erakusten ari zaie zazpi urteko haurrei. Joxerra Garzia

-Nire tximinoa jo duzu! -egin zuen garrasi doktoreak sutan-, jakin ezazu, **andereñoa**, etxe honetako nagusia balitz bezalaxe behar zaiola begirunea izan eta zerbitzatu hemendik aurrera. Josu Zabaleta

Azkenean **andereñoak** pasatzeko esan eta doktorearen bulegoko sarreraraino lagundu zion. Joxemari Iturralde

Hamaika urterekin, ordea, gorde egin behar izan nuen berriro, seigarren urteko **andereñoak** idazteko eskolako lumak eta tintontziak baizik ez baitzituen uzten erabiltzen. Josu Zabaleta

Gainera, pianoko **andereñoak** ez du garbi ikusten kontserbatorioarena, badakizu. Anjel Lertxundi

Piano-**andereñoak** berak zabaltzen dit atea, amultsuki irribarrez. Anjel Lertxundi

-Euskaldunon Egunkaria-ren ale bat emoidazu, mesedez, **andereño** -eskatu zion ahots herabez saltzaileari. Juan Luis Zabala

-Ez kezkarik izan, **andereño** -esan zion Katalinari neskameetako batek-. Koro Navarro

Egingo ditut ahaleginak, **andereño**. Anton Garikano

Saderen obraren azpititulua bera ere nahikoa esanguratsua da: **Andereño** gazteen heziketarako solasaldiak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kapelu luzeko gizontxoak eta **andereño** belodunak. Fernando Rey

Izan ere, andere handiki eta erregina izanik lehen, **andereño** soila bihurturik baitzaude orain. Patxi Ezkiaga

Nahigabe-minak sendatu, beharrak osatu, **andereñoak** babestu, alargunen bihotza suspertu, beste inork ez du hori guztia egin ohi zaldun ibiltariek baino hobeki. Patxi Ezkiaga

Begiak beherantz eta beren nagusiengana jasotzeko ausardiarik ez zuten **andereño** irri-egileek. Patxi Ezkiaga

Dorotea izeneko **andereño** soil bihurturik gelditu zela printzesa. Patxi Ezkiaga

Irakasle izanik neukan abantailaz baliatu nintzen Isaacs **andereñoarekiko** harremanean. Oskar Arana

1820ko martxoan, Roquelaure **andereñoa** esposatu zuen, 18 urteko neska ederra. Monika Etxebarria

McGonagall **andereñoa**, Gryffindor etxearen burua, oso zorrotza zen. Iñaki Mendiguren

-Beti bezala, ezta? -jarraitu zuen Saget **andereñoak**-. Karlos Zabala

Trelawney **andereñoa** suaren argitara etorri zen, eta mehe-mehea zela ikusi zuten ikasleek-. Iñaki Mendiguren

Judu-itxurako emakume adin ertaineko bat zen Delacour **andereñoa**. Irene Aldasoro

-Guk ere har ote dezakegu freskagarriren bat, Morkan **andereñoa**? Irene Aldasoro

-Hauxe kasualitatea zu hemen ikustea, **andereño** McGonagall! Iñaki Mendiguren

-Smithers andreak zuri elkarrizketa bat egitea iradoki zidan -azaldu zuen Hollingworth **andereñoak**-. Fernando Rey

Hitz eman zien dei egingo ziela, **andereñoaren** hitz artatsuak erabiltzera, baldin eta ezeren zantzurik sumatzen bazuen. Mirentxu Larrañaga

-**Andereñoari** galdetuko diot, jakingo du berak. Anton Garikano

Goizeko 10etatik aintzina, bisitatzen ahalko dira barne guztiak, 11etan ikastolako haur eta **andereinoek** egun horretako prestatu duten ikusgarria antzeztuko dute. Herria

Bat-batean, arreta lapurtu dizun **andereño** dotore baten perfumeak mozkortu zaitu. Xabier Paya

Horra hor **andereño** xarmangarri bat, eta inoiz baino hobeki sumatzen dut harengan zure ontasunen balioa. Jon Muñoz

Baina gure ikastola, gure penatze eta nahigabeen olak eta tegiak, geure baitako gela itsu eta barne ospelak zein diren jakin nahi bazenu, ez galdegin aita-amei edo maisu-**andereñoei**, ez alferrikako lanik hartu -Hauexek dira ikastola honetako maisu-**andereñoen** batez besteko adinak (eta benetako adinak ematen nizkien hor, hasi 23tik eta 55 bitartekoak). Iñaki Segurola

Ez niri **andereño** esan. Koro Navarro

2 *etxe andereño* *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Eta emakumez osatutako unibertso hertsian burdinazko **etxe-andereñoek** moldatu zioten nortasuna. ETC-literatura, saiakera

Etxe-andereño baten babespean ginen eta goian egiten genuen jolas haurren gelan. ETC-literatura, saiakera

Hark erantzun zidan etxalde batean **etxe andereño** zebilela, gobernanta, gerra hasi zenean, eta bertan jarraitu zuela amaiera garratza arte. ETC-literatura, saiakera

Amets eta fantasia masokista batzuek tormentatzen zuten, **etxe-andereño** batek jo egiten zuela eskolako guztien aurrean, eta berak pixa egin, nahi gabe: "Ideia horrek, bitxiki, plazera sentiarazten zidan". ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

andereño bat (7); **andereño baten** (4); **andereño bati** (3); **andereño gazte** (3); **andereño gazteen heziketarako** (4); **andereño granger** (3); **andereño hau** (3); **andereño honek** (4); **andereño mcgonagall** (7); **andereño talde batek** (3); **eliteko andereño** (3)

andereñoa agertu zen (4); **andereñoa bere** (4); **andereñoa ere** (4); **andereñoa ez zen** (4); **andereñoa hain** (3); **andereñoa han** (3); **andereñoa iritsi zen** (3); **andereñoa oso** (4); **andereñoa sartu** (3); **andereñoa zutitu** (3); **chester andereñoa** (3); **church andereñoa** (4); **da andereñoa** (3); **daly andereñoa** (3); **delacour andereñoa** (5); **denver andereñoa** (3); **dubois andereñoa** (3); **furlong andereñoa** (3); **granger andereñoa** (15); **healy andereñoa** (3); **isaacs andereñoa** (5); **julie andereñoa** (4); **lisa andereñoa** (3); **matthews andereñoa** (4); **mcgonagall andereñoa agertu** (5); **mcgonagall andereñoa iritsi** (4); **mori andereñoa zen** (3); **morkan andereñoa** (7); **postelberg andereñoa** (3); **sprout andereñoa** (3); **trelawney andereñoa** (22); **volanges andereñoa** (5); **zen andereñoa** (6); **zen ivors andereñoa** (3); **zen wilmarth andereñoa** (3)

andereñoak barre egin (3); **andereñoak beste** (5); **andereñoak burua** (3); **andereñoak entzun** (3); **andereñoak esan zuen** (3); **andereñoak ez du** (3); **andereñoak ez zion** (4); **andereñoak ez zuen** (5); **andereñoak irribarre** (5); **andereñoak zorrotz** (3); **baina saget andereñoak** (3); **bodwin andereñoak** (3); **daly andereñoak** (3); **esan zion andereñoak** (4); **esan zuen andereñoak** (15); **granger andereñoak** (6); **healy andereñoak** (4); **isaacs andereñoak** (6); **julie andereñoak** (4); **mcallister andereñoak** (4); **mcgonagall andereñoak bere** (4); **mcgonagall andereñoak esan** (4); **mcgonagall andereñoak ez** (3); **mcgonagall andereñoak hotz** (4); **mori andereñoak** (7); **o callaghan andereñoak** (4); **trelawney andereñoak ez** (4); **wilkoko andereñoak** (5); **wilmarth andereñoak ez** (4); **zien andereñoak** (3); **zien mcgonagall andereñoak** (11); **zien trelawney andereñoak** (4); **zion ivors andereñoak** (7); **zion mcgonagall andereñoak** (48); **zion saget andereñoak** (3); **zion trelawney andereñoak** (6); **zuen hollingworth andereñoak** (3); **zuen ivors andereñoak** (8); **zuen mcgonagall andereñoak** (23); **zuen postelberg andereñoak** (4); **zuen saget andereñoak** (16); **zuen sprout andereñoak** (3); **zuen trelawney andereñoak** (9); **zuen wilmarth andereñoak** (8)

andereñoarekin batera (3)

andereñoaren ahotsa (3); **andereñoaren ahotsak** (3); **andereñoaren aurrean** (3); **andereñoaren ikasgelako** (3)

andereñoarengana joan (3)

andereñoari begira (4)

andereñoen batez besteko (3); **maisu andereñoen batez** (3)

---

anderetza *iz* andere izateko nolakotasuna.

-Zaude isilik tuntun hori -esan zuen Santxok- bizpahiru urteko erabilia da eta guztia; neurri-neurrira hortxe etorriko zaio gero handizki **anderetza**; eta, hala ez izanik ere, zer axola zaio? bedi bai bera andere, eta datorrela datorrena. Patxi Ezkiaga

---

andero *iz* andak bizkar gainean daramatzaten pertsonetako bakoitza.

Hau **anderoek** daramatela, horrek lehorrean gelditu behar duela, hurrengoa Landetara doala lanera, bizitza erdia despedidatan, balek edo morteroek lehertutakoak kontuan hartu gabe. Koldo Izagirre

---

andesina *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi) iz* sumendi-harrietan aurkitzen den feldespato mota, aluminaz, sodaz eta karez osatua.

Andesina silikatoen taldeko mea mineral bat da, plagioklasaren sailari dagokiona, nagusiki andesita harkaitz bolkanikoan aurkitua, Andeetan. ETC-entziklopedia

Plagioklasa oligoklasatik **andesina** edo labradoritara joan daiteke eta askotan oso zonatuak izaten dira. ETC-entziklopedia

Irisazioaren bidez, **andesina** -labradoritek, ikusmen-angeluaren arabera, hainbat kolore-gama erakuts ditzake. ETC-entziklopedia

Tonalita arroka igneo arroka plutoniko plutoniko feltsiko faneritiko bat da. Feldespatoak agertzen dira, batez ere **andesina** eta oligoklasa eran. ETC-entziklopedia

---

andesita *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi) iz* kolore griseko eta pikor mehetako arroka bolkanikoa.

Andesina silikatoen taldeko mea mineral bat da, plagioklasaren sailari dagokiona, nagusiki **andesita** harkaitz bolkanikoan aurkitua, Andeetan. ETC-entziklopedia

Arroka hauen adibide dira: Basaltoa, **andesita** , erriolita eta trakita. ETC-entziklopedia

Beherago, 500 metroko lodierako **andesita** -osaeradun beirak eta bretxak daude. ETC-entziklopedia

Andesita eta erriolitaren arteko konposaketa du eta anesita bezala batez ere plagioklasaz osatua dago, biotita, hornblenda, augita eta enstatita izan ohi ditu. ETC-entziklopedia

Diopsidoa arroka ultramafikoetan (kimberlitan eta peridotitan) agertzen da, eta diopsidoan aberatsa den augita arrunta da basaltoa eta **andesita** bezalako arroka mafikoetan. ETC-entziklopedia

Labazko lasterretan azaltzen da batez ere, basaltoarekin eta **andesitekin** nahastuta. ETC-entziklopedia

Laba azidoa, silize eduki handikoa (erriolita, dazita edo **andesita**) eta oso likatsua izaten da. ETC-entziklopedia

Laba mota honek **andesita** kupulak eta bloke labak eratzen ditu, ohikoak Andeetan. ETC-entziklopedia

---

andetar **1** *izond* Ande mendietakoa, Ande mendiei dagokiena.

Lehenen-go belaunaldian Zibilizazio Sumeriko eta **Andetarra** , eta ziur aski Minoikoa, suntsitu zituen. Maien Zibilizazioa oihan tropikalaren erronkatik sortu zen; **Andetarra** goi-ordoki soilduaren erronkatik. Iñaki Mendiguren

Andetarra , Yucatandarra, Mexikarra eta Maiena. Iñaki Mendiguren

2 *andetar hartz* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hartz betaurrekodun edo **andetar hartz** ("Tremarctos ornatus") Tremarctos generoko animalia da. Artiodaktiloen barruko Ursidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

3 *andetar zibilizazio* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Andetar Zibilizazioa goi-ordoki batean sortu zen, eta bere arrakasta kontraste bizian zegoen beheko amazoniar oihanetan ezkutaturiko basakeriarekin. ETC-literatura, saiakera

Gaur egun, zantzu guztien arabera, Caralgo zibilizaziotik abiatuta **andetar zibilizazioa** sortzen dela baiezta daiteke. ETC-entziklopedia

---

andoaindar *izlag/izond/iz* Andoaingoa, Andoaini dagokiona; Andoaingo biztanlea.

Pello Irazu **andoaindar** artistak azkenaldiko bere lanak bildu ditu Madrilgo Soledad Lorenzo galerian zabaldu berri duen Pliegues erakusketan. Berria - Kultura

Andoaindarra nauk. Txillardegi

Igandean hil zen 28 urteko Aitor Larreta **andoaindarra** Aragoiko Monte Perdido mendian. Berria - Euskal Herria

Gaur egun Jose Ramon Esnaola **andoaindarra** dago Betisen atezainen entrenatzaile karguan. Berria - Harian

Koxe Mari Aranaldek kudeatu bertsu saioan ariko dira: Txomin Ezponda Aheztarra, Igor Elortza Durangarra, Sustrai Kolina Urruñarra, Imanol Lazkano Azpeitiarra eta Aitor Mendiluze **Andoaindarra** . Herria

Jaialdiko lehenengo partida zestaz jokatu zen, eta Lizasoain eta Urtasun **andoaindarrek** Giokoetxea eta Agirre zumaiarrei irabazi zieten (30-22). Berria - Kirola

Gerran fusilatu zituzten 22 **andoaindarren** argazkiak jarri eta beren senitartekoak lore sorta bana eskaini zien. Berria - Euskal Herria

Kaleko **andoaindarren** elur egun eta erdi kontatu du Pablo Sastrek 'Elurretan hotsak' (Susa) ahozkotik gertu dagoen nobelan. Berria - Kultura

Mundura atera nintzen orduan, eta Leuropa-n [...] bi **andoaindar** operazio zikin batzuk egitera mundura atera ziren. Berria - Kultura

---

andoaindartasun *iz* andoaindarra izateko nolakotasuna.

Horrez gain, Ugaldek bere bizitza osoan egindako ibilbidean azaldu zuen "gizatasun eta gizontasuna, askatasunez bizi eta hurkoa askatasunean bizi arazteko grina, euskaltzaletasuna eta **andoaindartasuna** " nabarmendu ditu adierazpen ofizialean. Berria - Kultura

---

andoila *iz ipar* hestebete mota.

Andoilak , binan-binan pilatuak, osasuntsuak eta apartak; saltxitxoiak, txantreen bizkarrezurren antzekoak, beren zilarrezko kapaz estalirik. Karlos Zabala

Andoila , saltxitxa eta odolkien aldea zen hura. Karlos Zabala

Lisa ederrak argazkia itzuli dio, **andoila** eskura ematen zionean. Karlos Zabala

Jakina, hesteek, saltxitxek, **andoilek** , txerri hanka ogi-arrautzeztatuek fintasun handiko grisak ematen zizkidatean. Karlos Zabala

---

andorratar *izond* Andorrakoa, Andorrari dagokiona; andorrako biztanlea.

Toni Bernardo **andorratarrak** , Roger Roca katalanak eta Maria Jose Pueyo espainiarrak, iazko txapeldunek, ez dute huts egingo, eta irteeran izango dira. Berria - Kirola

---

andosilar *izond/iz* Andosillako biztanlea.

Valverdek aurreikusia zuenaren arabera, gaur entrenamendu gogorragoa burutuko du **andosillarrak** . Berria - Kirola

Ordubete eskaseko ebakuntza nahikoa izan zen **andosillarraren** aurpegia konpontzeko. Berria - Kirola

Aurrera joateko iaz baino aukera gutxiago dauka **andosillarrak** . Berria - Kirola

andosillar *izlag/iz* Andosillakoa, Andosillari dagokiona; Andosillako biztanlea.

Ordubete eskaseko ebakuntza nahikoa izan zen **andosillarraren** aurpegia konpontzeko. Berria - Kirola

---

andra ik **andre**.

---

andraize *iz* hego haizea.

Bizkai aldean, esate bateko, **andraizea** deitzen zaio hego haizeari, aintzinako sineste zaharren arabera, haize klase honek, emakumeagan amodio gogoa eta haragi grina areagotzen omen dituelako. Patziku Perurena

---

andrakila *iz* emakumezko itxura duen panpina.

Ohetik altxatu eta egin zuen lehenengo gauza bere **andrakila** maitea besarkatzea izan zen. Jasone Osoro

Egin nahi zuen gauza bakarra, bere **andrakila** altzoan hartu eta sofan eserita leihotik begira egotea zen. Jasone Osoro

Andrakilaren sabelean pausatu zen eta handik behera irrist egin zioten hankek, aluaren erdi-erdian geratu arte. Jasone Osoro

Pozik zegoen, bazekielako bere **andrakila** benetakoa zela, eta bere ondoan izango zuela bizitza osoan. Jasone Osoro

Maindireak eta ume jostailu batzuk jausi ziren nire aurrera, trapuzko **andrakila** hartu eta arineketan alde egin nuen gauean. Joseba Sarrionandia

---

andrakume *iz* emakumea. ik **andrazko**.

Ezaguna nuen; halako orduetan "Lisboan" gerizatzen diren **andrakume** beldurgarrietariko bat, oro ore eta margo. Aingeru Epaltza

Ez nintzen "Lisboara" joana, Perseoren Medusena eginez, hango **andrakumeen** begiradak harri eginik utz nintzan. Aingeru Epaltza

Ez nion deus ere galdegin "Lisboako" **andrakumeaz**. Aingeru Epaltza

---

andratxo *iz adkor* andrea.

-Aita txit santua, barkatu, baina errieta gogorra merezi nuke, Kristoren ordezkariaren aurrean, **andratxo** ziztrin bat izanik, bedeinkapena ematen ausartuko banintz. Askoren artean

---

andrazale *izond* andrezalea.

Andrazale benetakoa. Oskar Arana

---

andrazko *(orobat **andrezko** g.er.) izlag/iz/izond* emakumezkoa, emakumea.

Datuen arabera, diru laguntza jasotzen duen herritarraren soslaia honoko hau da: 45 urteko **andrazkoa** da, bakarrik bizi da edo kide bakarreko familia osatzen du, ez ditu lehenengo mailako ikasketak egin eta langabezian dago. Berria - Ekonomia

Azkenaldion, ostera, ez bi eta ez hiru, etorri zaizkit zu **andrazkoa** zarela esanez. Hasier Etxeberria

Joan den urtean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Oinarrizko Errenta jaso zutenen %70 **andrazkoak** dira, eta batez besteko adina 45 urtetik gorakoa da. Berria - Ekonomia

Mundu osoko parlamentarien %16 baino ez dira **andrazkoak**. Berria - Gaiak

Burua halakoetan nerabilela, **andrazko** bat agertu zen etxeko ate-postan, sein bat besoetan eta neskatxo bat gonari oraturik. Edorta Jimenez

Milaka emakume geratu ziren alargun haren ondorioz, eta gobernuak nolabaiteko konpentsazioa asmatu zuen, **andrazko** haiek ere aukera izan zezaten sexuaz gozatzeko. Jon Arretxe

Bere saltxitxoiak bezala estutzen din **andrazko** horrek gerria. Karlos Zabala

Jesarri bezain laster etorri zaidan **andrazko** bati galdetu diot ea beste hizkuntzarik dakien. Edorta Jimenez

Herentzia kontuetan ere zuzenbideak dio semea nagusi dela, eta gizonezko batek **andrazko** biren balioa duela. Patxi Zubizarreta

Aldizkaria gizonezkoentzat, **andrazkoentzat** edo bientzat ote den ere ez dugu esan, erabaki ere ez baitugu orain artean erabaki. Xabier Mendiguren Elizegi

Arratsaldeko seietan hiru **andrazko** jesartzen ziren bankuetako batean. Unai Elorriaga

Tximaluzeak ziren **andrazko** zein gizonezkoak, edo kaskamotzak osterantzean. Xabier Montoia

Aipagai zuen saileko behargin **andrazkoek** debekatua zuten aurpegiko hautsak erabiltzea, baina behin, neska bati sakelatik hautson ontzia erori, erortzean ireki, eta han zabaldu zen airean hautson zati eder bat. Juan Garzia

2. pertsonan **andrazkoen** hitanokoa da *n* (*dun, dakin*). Koldo Zuazo

Andrazkoen erdiek baino gehiagok jasaten dute prekarietatea lanean. Berria - Euskal Herria

Daly andereñoa, ez dakizu nola eskertzen dizudan, azken bi dantzak jo dituzularik, baina **andrazkoen** faltan gabiltza gaur. Irene Aldasoro

Andoni Olaberengana txanpona jaurtitzera hurbiltzen ziren **andrazko** gazte guztiak barre eginda urruntzen ziren, kapelu kriket haiek xarmangarri luzituz. Koldo Izagirre

Andrazko handi ederrak, mardulak, bizkar zabalekoak eta bular alde oparokoak, eta aurpegi potzolo guri-mamitsuak, eta matrail-gorriak. Mirentxu Larrañaga

Eta Méhudindarrak larrutzen zituzten, **andrazko** purtzil horiek, gizonen dirua besterik nahi ez zutenak. Karlos Zabala

Irakurle gizonezkoak "holakoxeak gara" esateko baino gehiago, irakurle **andrazkoei** "zelakoan zareten!" esanarazteko moduan. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **andrazko bat** (3); **hiru andrazko** (3)
> **andrazkoa da** (3)

---

andre *(ETCn **49.578** agerraldi; orobat **andra** **5.789** agerraldi; cf **andere** **12.410** agerraldi)* **1** *iz* emakumea; emaztea.

Azafata zuela **andrea** esan zigun behin Isidorrek, aitak. Joxemari Urteaga

Eta eskubide horiekin batera, **andreen** eskubideak ere begien aurrean jarri zaizkigu. Pello Salaburu

Oharraren arabera, zintetako kontaketa egiazkoa zen, aipatzen ziren pertsonen izen gehienak aldatuta egon arren, eta egilea hirurogeita zortzi urteko **andre** bat zen, Bahian jaioa eta Rio de Janeiron bizi zena. Karlos Zabala

Hala ere, tratuari ondo zeritzola erantzun zuen, eta **andreak** banan-banan eman zizkion aholkuak. Jon Arretxe

Artean bere ama ere bizi zuen, 90 urteko **andrea**. Gotzon Garate

Aitona oso pozik gelditu zen, baina **andre** haren esker ona izan ezik, ez zuen kontu hartatik beste ezer onik atera. Jon Muñoz

Haren **andrea** goraipatzen hasi nintzen, emakume aparta izango zela esan nion, hura bezalako gizon bat erakartzeko. Karlos Zabala

Schumacher koronelak isilik aztertu ninduen, gero **andreari** esan zion lehenbailehen atera behar nuela bere etxetik. Fernando Rey

Hara gindoazela **andre** bat ikusi nuen, lokatzetan hilda, besoa bakarrik ateratzen zitzaion, hura zen zerrikeria, hura izua, etxeak erorita zeuden, haurrak negarrez, gu beldurtuta geunden, hara, ezin da esan ere egin hura zer zen. Pako Aristi

Beren **andreak** han-nonbaitekoak zituzten. Daniel Landart

-Zure aita -adierazi zion **andreak**. Elena Touyarou

Nor da **andre** hori? gure gidariak etxeko nagusi zirudienari. Xabier Montoia

Frantzia bertatik helduko omen da **andre** bat datorren kurtsoan frantsesa irakasteko. Joseba Sarrionandia

Elsa Schick bere **andrearentzat** asmatu omen zuen bereziki arropa garbitzeko makina hobetu hori, emazteak arropa garbitzeko egin beharreko lan gogorraz errukituta... J.M. Olaizola "Txiliku"

Andreak zerura egin ditu bere begi bustiak eta kukuka dabiltzan ilargi eta izarren argi margula jaso du bisaian. Pello Lizarralde

Ia etsita nengoela, dudarik gabe erosketak egitera zihoan **andre** bat irten zen kaleko atetik: oina zirrikituan sartu, eta atarian barna abiatu nintzen. Iban Zaldua

Inola ez dugu gogoko janguratik eta **andrearekin** elkartze nahitik askatzea. Jenaro Garate

Nahi baduzu, **andrea** eta bioi laguntzea daukazu eta bai aldairako langileei ere. Matías Mujika

Zelan berba egin holako **andre** bati? Gotzon Garate

- Hemen dago **andrearen** txostena, jauna. Harkaitz Cano

Seguru asko -halaxe pentsatu zuten-, lo zeuden **andreak** eta haurrak bakean utziko zituzten. Gotzon Garate

Capon ohean zetzan, pixka bat mozkortuta, baina **andreari** begirik kendu gabe. Lutxo Egia

Artean, herriko **andreak** kezkatzen eta beldurtzen hasiak ziren, bataren ama eta bestearen amama han agertu ziren, umea eskutik heldu eta etxera eramateko edo heldu ezinean deika: Joseba Sarrionandia

Alboko karrika bat zeharkatzean **andre** bat ikusi bainuen bere lepozapian bildurik, existituko ez balitz bezala desagertu zen bertan. Juan Garzia

Eta zu zorioneko arraioa bera **andretzat** edukita. Oskar Arana

Ez zitzaizkion, gainera, **andre** eta gizon haiek iruditzen garai berriko Euskal Herria ezagutzeko izan zitzakeen lagunik egokienak. Juan Luis Zabala

Den-dena erlatiboa da, eta paradisuan egon berria zen batentzat gaitz hura izugarria zen, latza benetan, eta Adan, erabat ikaraturik, dardarka, alboan zeukan **andrearengana** jiratu eta halaxe esan zion: Bernardo Atxaga

Anaia Tomas, sofa txikian; ni, balkoi ondoko aulkian; eta **andreak**, sofa handian eserita. Pedro Alberdi

Pauso erabat deskontrolatu batzuk eman eta lurrera jausi zen **andrea**. Unai Elorriaga

Eta ezer gutxi gehiago jakin nezakeen: Berta izeneko **andre** batekin ezkonduta egon zela, alemaniarra bera, Lora izeneko zazpi urteko alaba zutela. Eider Rodriguez

Gure aitona Patxi Beititik Larregira ezkondu zen, **andrearen** baserrira, eta bere arreba Juana geratuko zen geroztik Beitiko nagusi. Xabier Mendiguren Elizegi

Lastima da zuek horrela barre egitea, zeren, berriro diot, drama samin bat baitaramagu gure baitan, beltzez jantzita datorren **andre** honen itxuratik aise atera dezakezuenez. Josu Zabaleta

Hurrengoan Jose Mariren **andrea** etorriko dela esan dio, eta horrela elkarrekin kafea hartuko dutela, eta hitz egin ahal izango dutela, haurrak jolasten diren bitartean. Alberto Barandiaren

Jazoera miresgarria filmatzen ziharduen Joaquin tafallarrak, kamera Idoiarengandik erretratuko **andrearengana** eta atzekoz aurrera mugituz eroturik. Xabier Montoia

Etxean sartu eta **andre** bat topatu zuen aurrez aurre. Jon Arretxe

Hala, lehorte handi bat eragin zuen; bitarte horretan ostatuz hartu zuen **andrearen** semea 'berpiztu' zuen; laurehun eta gehiago profeta gaizto suntsitu zituen; gero, berriz, hain beharrezko zen euria ekarri zuen... Jose Antonio Mujika

Nik bakarrik joan nahi nuen, eta **andre** hura berriro ez ikusi. Joseba Urteaga

Sexismoari itzuri ezinik, ez dago zalantzarik, atso kontuak dira gezurrak, edo dotoretuta, **andrearen** negarra. Iñigo Aranbarri

- Hilda dago? -galdetu dizu morboz **andre** batek. Urtzi Urrutikoetxea

Bidean Herrera de la Manchako kartzela aurretik igaro ginen, eta Ainhize eta biok ulertzen hasi ginen; **andreak** berak -Mari Jose zuen izena- konfirmatu zigun geroago imajinatu genuena. Iban Zaldua

Bolgara erregina, Argonen **andre** zena, hil da eta Argonek bakarrik bere andrearen leinuko espos baten hartzeko dretxoa du. Aurelia Arkotxa

Orain maldan gora doa **andrea**, baina ez lehengo bide zuzenetik, oso pikoa baita, diagonalean baizik, gereziondoen atzetik buelta osoa eginda. Patxi Iturritegi

Andre bat badut, eta arraroa gainerat. Janbattitt Dirassar

Ni zelatan nengoelarik, batzuetan **andreak** onartzen zuen, bestetan ezetz esaten zion, barrez. Pello Lizarralde

Horretan beren beregi zekien **andre** bat abila bazen herrian, Tiradora zeritzotena. Jon Maia

Lasai egon hadi, nik hogei urte zeramatzaat **andrearen** ondoan eta oraindik ez diat ezagutzen. Xabier Etxabe

Berrogeita hamar bat urteko **andre** batek atea bultzatu, eta "arrantzari buruzko hiztegi moduko bat, edo tankera horretako zer edo zer" eskatu zuen. Jon Muñoz

Line du izena; nire **andrea** da, nire maitea, nire bizia. Eskarne Mujika

Handik ordubetera, Erniora iritsi eta guk ere geure zintak erosi genituenean, adineko bi **andre** ikusi genituen gailurreko gurutze baten ondoan kuzkurtuta kandela bat pizten. Bernardo Atxaga

Andreak aitortu zidanez, semearen urtebetetzea zen, eta nirekin ospatu nahi zuen. Javi Cillero

Bien bitartean, Mark erregeak ezkondu egin nahi zuen, eta txori baten mokotik eskura erori zitzaion ilearen jabea izango zela bere **andrea** erabaki zuen. Juan Kruz Igerabide

Andre bat nigana makurtzen da,/bera zinez zer den nire luze-zabalean aztertuz. Bernardo Atxaga

Andre bat etorri zaidak bi haurrekin. Eneko Bidegain

Txakurra zuen lagun bakarra, eta aspaldiko irudiak zekarzkion gogora horrek: txakurra, beltzez jantzitako **andrea**, ageriko arrazoirik gabeko zaunkak, larritasuna, herioa urruti ez zebilelako susmoa. Imanol Zurutuza

Andreak dena prestatu dik: tantaz tantakoa, pixontzia, morfina-anpuluak... Iban Zaldua

Ordutik atzean ditiat zipaioak, ondo baitakite hire **andrea** naizela. Eider Rodriguez

2 (izenondoekin)

"Ez zalantzarik izan, hurrengo bizitzan interiorista izango naiz", esan ohi zuen broma antzean alemaniar jatorriko **andre** gazteak, baina begi-bistakoa izaten zen ez zela txantxetan ari, bene-benetan baizik. Patxi Iturritegi

Probagelako atearen azpitik pasatu zizkigun guri; oso **andre** diskretua zen eta oso dotorea, eta horrelako lan bat gogoz hartuko nukeela esan nuen neure artean. Joxan Elosegi

Senarraz ari zen: berrogei urteen bueltan, **andre** txiki beltzaran honek, aurrezturik zuenarekin, gizon gazte xarmant bat, Lecointe lantegiko doitzaile, oparitu zion bere buruari. Monika Etxebarria

Eta **andre** zaharrak, haserre, hots egin zuen: Josu Zabaleta

Sebastiana **andre** zahar bat zen, basoan bizi zena, urruti samar. Pako Aristi

Atzo mezetan zian: hauxe **andre** mindulina bilakatua den Traputegiko premua! Itxaro Borda

Etxera zihoan bueltan, aurrera begira, **andre** ilehoriaren doilorkeriak erretxinduta. Lopez de Arana

Zein da nire trena? -galdetu zuen **andre** laranja batek. Unai Elorriaga

Andre handia zen. Ana Urkiza

Oraindik bizirik zegoen **andre** zahar gorrak ez zuen ezer susmatzen... Xabier Paya

Edandakoan jarrera xelebre hori hartzea da, Xenpelarren ustez, **andre** txarraren bentajetako bat. Joxerra Garzia

Andre berriari eskuan musu eman, eta larrosa-sorta bat eskaini zion. Xabier Olarra

Neskaren amak - goxoagoa, luzea baino luzeagoa, **andre** ihar ilehoria - ez zien hainbesteko kasurik egiten nire bitxikeriei, nik atzerritar ez-ostrogodoa nintzen aldetik neuzkan bitxikeriei. Fernando Rey

Hori guztia **andre** jator honi esplikatzen diozun bitartean, nik pixa egingo dut zuen baimenaz. Aitor Arana

Ezkongabeei eta **andre** alargunei, dauden egoeran jarraitzea on dutela esaten diet, ni bezala. Elizen arteko biblia

Sukaldean berarekin Marijo, hirurogei urteko **andre** grazia handikoa, hari esker eramaten du sukaldeko eta jantokiko lana. Paddy Rekalde

Fantecchi **andre** doilor horrek marroia eginarazi dit soinekoa! Fernando Rey

Gautzen hasi zuenean, Madame Rogêti (edadeko **andre** eria zen, hirurogeita hamar urtekoa), entzun omen zioten esaten 'Marie ez zuela berriz ikusiko', baina hitz haiei orduan ez zien inork jaramonik egin. Koro Navarro

Maitemindu egin ote da C. **andre** suharrarekin, galdetzen diot neure buruari, edo gau bateko kontu baten gisa utziko ote du bazterrera? Oskar Arana

Ileaz zegoen, hain zuzen, harroen: bi mototsetan bana zezakeen, Pippi Galtzerdiluzeren antzera, eta gazteagoa zela antzeztu; edo aske utzi eta arropa serioagoa jantzi, **andre** heldua itxuratuta. Fernando Morillo

Andre gajoa geranioen gainean geratu zen gorpu, oihuka hasi eta Kimetzek labana eztarritik pasatu zionean. Jokin Muñoz

Andre ederrak, esna zaitezte, etxeko jauna hil zaizue. Pako Aristi

Klubeko emakume bat, ile-urdina, lepoan arrasto bat zuen **andre** mehe bat -Alice zuela izena, Packertarrek ez zekiten besterik- etorriko zen berehala kafe poto batekin. Koro Navarro

Zakur zaunka batzuk entzun dira, eta etxe barrutik nigana datorren zakurra ikusi dut, atzean eskuak keinu urduriez mandarrean lehortzen dituen **andre** txiki bat duela. Jon Alonso

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sekula behartsuaren etxola bisitatzera jaisten ez diren gizon aberats eta boteretsuek, haurtxo gosetien garrasi errukarrien eta **andre** -malkoen artean lizundutako ogi bat sekula banatu ez dutenak. Juan Martin Elexpuru

Manuelen ama ere ikusia omen zuen, **andre** multzo baten erdian azalpenak ematen, eta urduri omen zirudien. Pedro Alberdi

Bata, orduan neska-lagun eta orain **andre** -lagun dudana, Amaia, gertu nahi eta urruti neukana. Joxerra Garzia

Era berean senarrak, betiko emazteaz aspertuta, **andre** -lardasketan diharduela eta horrek, ezkontzaren objektua bete gabe, ez dio besterik erakartzen plazerra baino. Andres Urrutia

-Arraioa, hori **andre** puska! Fernando Rey

-Ikusi al duzu gazte **andre** -gixon koldar bat, justiziatik ihesi dabilena? Joan Mari Irigoien

Honela, Venusen gezien kolpea hartzen duenak, dela geziok **andre** gorpuzkerako mutiko batek dela gorputz osotik amodioa darion emakumeak jaurti, zauritzen duen harenganantz tiratzen du eta harekin bat egiteko eta gorputzeko humorea haren gorputzean husteko irrikaz dago. Xabier Amuriza

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aipatu zidan oraino Ceylan uharteko arrain-**andrea**, 1835aren inguruan, Antonio Abbadiak (aita euskalduna, ama irlandarra) Aurelia Arkotxa

5 (deiki gisa)

-**Andrea**, emadazu hartu duzun arrosarioa eta bakean joan zaitez. Martin Anso

Zure semea zerura joaten bada, **andre** maitea, harro egon zaitezke, eta ez dago negar egiteko arrazoirik, kontrakoa baizik. Harkaitz Cano

Gau on **andre** laztanok, gau on, gau on. Juan Garzia

Ardoa, **andrea**, Jainkoak gizonari egindako opari hoberentsuenetakoa da. Xabier Olarra

Amaordearengana itzuli da laguntza eske: "ez duzu uste, **andrea**?". Urtzi Urrutikoetxea

-Ongi etorri, Gülbahar, ene **andrea** -egin zion diosal Hüsok irribarrez. Fernando Rey

Ez zara horregatik minduko, **andrea**. Antton Olano

-Oso baketsu, **andrea** -esan zuen Elizak. Irene Aldasoro

6 izenaren eskuinean erabiltzen den gizalegezko hitza.

"Adhémar de Rollebonek -idatzi zuen Charrières **andreak**- ez zuen keinurik ez imintziorik egiten mintzatzean, ez zuen intonazioa aldatzen. Monika Etxebarria

Horren egilea, Simone Weil (1909-1943) **andre** judu eta kristau pentsalari sakon eta bipila zen. Piarres Xarriton

Maria irakaslea izandakoa da eta asko dakiela dio auzoko Veronica **andreak**. Unai Elorriaga

Gutunetan aipatua da Cécilek hamabost urte dituela, Dancenyk ere hortxe nonbait seguru asko; haien maisu eta gidari diren Valmont eta Merteuilek hogeita urte gutxi izango dituzte, eta Volanges **andre** ohituraren arabera oso gazte ezkonduak hogeita hamar bat urte inguru izan litzake. Jon Muñoz

"Bai, noski, eguraldi ona egiten badu" esan zuen Ramsay **andreak**. Anton Garikano

Ikustekoa zen inspektore **andrearen** aurpegia. Joxerra Garzia

Emakume askorentzat, berriz, gutuna zen adierazpide bakarra, eta gutun idazle gehienak emakumeak izan ziren, liburu honetan aipatua den Sévigné **andrea** gidari. Jon Muñoz

-Oso aberatsa al da Williams **andrea**? -galdetu zuen Gwilymek. Koro Navarro

Eta ez da hemen erranaz besterik irakurtzen ez aurkitzen, hori bera aitortzen baitute Inozentziok eta ondotik ostiarrak eta Joanes **Andreak**: eta, beraz, hor dago botere laikoaren egiazko iturburua. Piarres Xarriton

-Hitz bi egin nahi nizkizuke, Peaceful **andrea** -esan zuen. Mirentxu Larrañaga

Durant **andrea** sukaldetik azaldu zen, musua gorri-gorri eginda, arrain-zopari azken ukituak ematen jarduna izaki. Mirentxu Larrañaga

Farodia Rassool **andreak** hartzen du hitza orain. Oskar Arana

7 (ezkerrean)

Kargua eman zidaten **andre** Lukatxevskiren establezimendua bijilatzeko, garai hartan establezimendu ospetsua, non ofizialek ohitura zuten gauerdi ondoan elkartzeko. Matías Múgica

Han, eder, galai, **andre** Dona Mariaren iruditxo bat zegoen, lore ihartuz inguraturik. Edorta Jimenez

Andre Ageda amak eta Karlos eta Katalina haren seme-alabek osatzen zuten ohandotarren familia. Koro Navarro

Gaur egun bezalaxe, **andre** Lafonen etxean bizi nintzen, eta nire lagunik onenetako bat, Louis Bernet, orain txaluparitza eta hark dituen ponpeziak eta pildak alde batera utzi, eta Estatu Kontseiluan sartua dena, C... herrian kokatua zen, milia pare bat beherago. Josu Zabaleta

Andre Malraux-ek kontatzen du, Bigarren Mundu Gerran Gestapok atxilotu eta Tolosako Saint-Michel kartzelan zegoela, beste atxilotu bati galdeketa egiten ari zirela naziak. Jokin Urain

8 ***andre eta jabe*** ik **jaun eta jabe**.

Amak idatzi digunaren arabera, Etxandiaren zatirik handiena ofizialentzako ospitale bilakatu dute dagoeneko, eta Otsemek gobernatzen omen du han goiko oilategia, sekula baino nagusi **andre eta jabeago**. Mirentxu Larrañaga

9 ***Andre gehien***

(Joana Albrete Nafarroako Regina eta Bearnoko **Andre gehien** denari... Joanes Leizarraga Beraskoizkoaren eskaintza). Piarres Xarriton

"Guzizko Andre noble Ionna Albrete Nafarroako Regina Bearnoko **Andre gehien**, denari, bere zerbitzari guzizko txipiak eta guzizko obedientak, Ioannes Leizarraga Beraskoizkoak", halaxe zioen hasieran, eta lagun Luzienen euskara moldea ekarri zidan hark gogora. Edorta Jimenez

10 ***andre-gixon***

Ikusi al duzu gazte andre- **gixon** koldar bat, justiziatik ihesi dabilena? Joan Mari Irigoien

Besteak beste, andre- **gixon** eta gonazulo deitu zieten, eta, jakina denez, gizonezkoek oso iraingarritzat dauzkate hitz horiek. Jose Morales

11 *andre-gizon* *pl*

Gaia aldatze aldera (aspaldi gertatzen ez zenez), atzo Van Daan **andre-gizonak** izan zuten eztabaidatxo bat kontatuko dizut. Josu Zabaleta

Irudipen txoro bat izan nuen: **andre-gizon** haiek Goizederren gurasoak zirela. Juan Luis Zabala

Handik apur batera, isilik zeudenez, tentuz begiak altxatu eta eskutik helduta ikusi ditut, elkarri samurtasunez begira, **andre-gizonak** bezala. Urtzi Urrutikoetxea

Neska-mutilen eta **andre-gizonen** erlazio publikoek siziliano samarrak dirudite Pasaian. Koldo Izagirre

Zabor-jendeak ez bezala, **andre-gizon** gisakoek halako gider koipetsuei kontzen diete, beren kolesterol tasak bihotz-kargarik gabe gainezkatzekotan. Aingeru Epaltza

Bi etxetan atxilotu zituzten Berriozarkoak: 57 eta 50 urteko **andre-gizonak** batean, eta 34 urteko semea bestean. Berria - Euskal Herria

Barreneko horman azulejo zuri eta urdinezko koadro bat ikusten zen: Santo Tomas Villanuevakoa, gotzain jantzita, bere makulua eskuan zuela, eta haren ondoan belaunikaturik **andre-gizon** beltz batzuk. Josu Zabaleta

Era berean, era askotako ezbeharrak zituen beste **andre-gizon** multzo handi batek irrikatzen zuen ongizatea lortu zuen. Askoren artean

Korrituak ditut bi Nafarroetako lurrak, ipar eta hego, Biarnokoak, Frantziakoak, Aragoikoak... Eta denetan, ehunka **andre-gizon** ezagutu ditut nire gisakoak. Aingeru Epaltza

Ez da heriotza-piztuera borroka, etxekoen arteko **andre-gizonen** borroka baino. Pello Zabala

12 *andre handi*

Andre handia zen. Ana Urkiza

Andre handia , eta lagun mina. Ana Urkiza

Eskolatik ateratakoan haren atzetik joaten ginen Donna Cannone ezizeneko **andre handi** harekin zihoala. Pello Lizarralde

Eta badakin nolakoak garen emakumeok: min eman zidanan horrek, sutu erabat; nirekin atera eta gero goitik behera pitxiz jositako **andre handi** usteko haiei begira, begiak apartatu ere egin gabe? Xabier Mendiguren Elizegi

Bertuteen irudien artean Karitatearena da gehien nabarmentzen dena; ohiko moduan irudikatu zuen Grecok Karitatea: magalean hainbat ume dituen **andre handi** bat, hain zuzen. Berria - Kultura

Andre handi beltzaran batek bultzatu zuen dendako atea. Karlos Zabala

Ez zen emazte zoragarri haietarik, ez eta Baionako Durruty notarioren bulegora jiten ohi ziren **andre handi** haietarik, baina haren baitako zerbaitek erakartzen zuen. Elena Touyarou

Berdin hil zituzten Maria-Antoaneta Frantziako erregina, eta printzesa Elizabeth, errege Luisen arreba; eta hek bezala hainitz artxapezpiku, apezpiku, apez, fraile, serora, aitorenseme, **andre handi** , gizon eta emazte jainkotiar. Xipri Arbelbide

13 *andre handiki*

Handik alde egitean, Settesoliko Jakoba **andre handikiari** utzi zion, bere etxean zain zezan. Askoren artean

Etorri ziren **andre handikiak** , Moskutik bertatik batzuk eta beren etxalde urrutiko nahiz gertukoetatik besteak. Matías Múgica

14 *Andre Maria*

Bertze zenbaitek aurreko guztiarekin ikustekorik izan gabe, "kakazaha"-ren gisako burroak, **Andre Mariaren** letaniak edo Koraneko surak erabiltzen dituzte. Aingeru Epaltza

Andre Mariaren mantua ere deitzen omen zitzaion, Ama Birjinari eskainitako landarea baitzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Orain, aldiz, oharkabean bere irudia ispiluan ikusten zuenean, ezin zion eutsi barru-barruko oihu bati: " **Andre Maria** zeruetakoa!, hau itxura itsusia hartu dudana!". Jose Morales

Estibalizko **andre mariaren** izenean ere, ezti (a) balitz esaera ikusi dute zenbaitzuek, funtsik gabeko etorkia hori ere. Iñaki Arranz

Sarjentu zahar bat, andaluza bera, urrumaka hasi zitzaion ama nagusiari, eta konplimenduak egiten zizkion, klasikoetakoak; begiak bi izar "diztirazu" bezalakoak zituela esan zion, eta Utrerako "Konzolazioaren" **Andre Mariaren** antza zuela, eta almanaketako errepertorioko beste gauza sorta bat ere kontatu zion. Koro Navarro

Bata bestearen ondoan daude, Westminsterreko **Andre Mariaren** parrokia eta Paddington parrokia elkartzen direla dioten leku berean. Julen Gabiria

15 *andre-sillaka* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aulkitxoan, besotan, motxilan, buru gainean, **andre-sillaka** . ETC-prentsa

16 *dama andre*

Dama andreak azaldu zionez, ordea, hala jokarazten zion edozein lagun hurko zorigaiztokok. Mirentxu Larrañaga

17 *etxeko andre* ik **etxekoandre**.

18 *jaun-andre* *pl*

Hiriburuko seme-alabek maitasun epela agertzen zieten erresumako **jaun** -andreei. Aingeru Epaltza

-Bueno, **jaun** -andreok, hasi egin beharko dugu dantzaldia. Eta izen garbi jakinen eremuan, **jaun** -andreok, zoriontasuna ez dena zorigaitza da, eta tristura. Irene Aldasoro

Poker gaua, **jaun** -andreak! Xabier Paya

Mila esker, **jaun** -andreok. Jesus Mari Mendizabal

· Nik izango diat Gallaher **jaun** -andreei bizi luze eta zoriontsua opa izateko atsegina. Irene Aldasoro

Jose Olarra eta Maria Luisa Larramendi **jaun** -andre historialari tolosarrek. · Gonbidatuari etxeko **jaun** -andreen erdian jartzeko eskatu zioten. Piarres Xarriton

19 *jaun-andreak* (deiki gisa)

" **Jaun-andreak** , Pagotxueta!", egin zuen oihu Josebak. Bernardo Atxaga

Poker gaua, **jaun-andreak** ! Xabier Paya

Sua gauza handia da berez, **jaun-andreak** . Bernardo Atxaga

20 *jaun-andreok* (deiki gisa)

Baina gero Rolex bat erakutsi dit, joka hasi zait kristalean, kax-kax-kax, hemezortzi minutu, **jaun-andreok** , hemezortzi minutu... Javi Cillero

Jaun-andreok : beroriek hartzen dute aintzakotzat ezereza? Fernando Rey

Txoko guztietatik esku-zartak, bravo, bravo, bravo! Ez ote zukeen berak ere horretan saiatu behar? Agian broma baten edo apustu baten aitzakiarekin... "Utzi saio txiki bat eskaintzen, **jaun-andreok** ... Saio bat basokada garagardorekin... ikusi: horra!". Anton Garikano

Eta, **jaun-andreok** , nor zen traste kirrinkari haren gidaria? Alberto Ladron Arana

-Jaun-andreok , bukatu da mus-partida... Inazio Mujika Iraola

-Jaun-andreok , barrura, mesedez - eskatu zien Einsteinek, anfitrioi papera hartuz. Fernando Morillo

21 *mediku andre*

Eta han beheraxeago, madariondo zaharraren azpian, **mediku** andrea ikusten nuen, ez naiz haren izenaz gogoratzen, behin izan nintzen haren etxean begiak sendatzera joanda. Felipe Juaristi

"Mediku andrea" , dio hark, "andrea, ez jauna". Oskar Arana

22 *zaindari andre*

Behera iritsi zenean, hesteak agerian geratu zen baldosa zuriaren gainean, **zaindari-andreak** erortzean harrotutako geranio-petaloekin nahasian. Jokin Muñoz

Udaletxeko **zaindari andreak** lore-poto guztiak ezkaratzean jarriak zituen. Jokin Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 23 aldiz agertzen direnak)

andre bat (76); **andre batek** (51); **andre dena** (31); **andre maria** (44); **andre mariaren** (47); **andre zahar** (45); **andre zaharra** (26)
bere andrea (23)
andreak esan (35); **esan zuen andreak** (66); **jaun andreak** (23)

---

andredena *iz* Jainkoaren Ama aipatzean aurrean ezartzen zaion hitza.

Dena aldatuko da **Andredena** Maria gurtzeko sukarra ariman txertatuko zaien egunean. Jon Alonso
Gestapoak ez zuen sinetsi nahi ukan ezkilak ari zirela **Andredena** Mariaren sortzearen bestakari. Marzel Etxehandi
Kasko batean, dena argitarat, iduri urrezkoa, **Andredena** Mariaren itxura, hiri guziari bere geriza eskaintzen zuela. Janbattitt Dirassar
Guzien gainetik Jesus behatu zaio Euskaldunen ama berezi bereziari, **Andredena** Mariari. Xipri Arbelbide
Herriko bestek segitzen dute, **Andredena** Mariaz aratsaldeko 4 orenetan kantaldia elizan. Herria
Andredena Mari eguna eta herrian bestak. Herria
1927-ko **Andredena** Mariz, beraz agorrilaren 15ean, beti bezala Donibane Garaziko bestak ziren. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Kurutzeak aipatu ditugu bainan ez gaude hitz bat erran gabe bestalde itsas hegian ezarria den Muskoako **Andredena** Mariaz. Herria
Andredena Mariako meza guziz ederra, eliza mukurru, han ere zela oso osoan klika. Herria
Irailaren 7an Orriako **Andredena** Mariaren Beila iragan da Orreagako monasterioan. Herria
Beste beilari kuraidun batzuk bidea segitu dute Otxagabiarat buruz, Muskildako **Andredena** Mariaren beila iragaiten baitzen biharamunean. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

andredena eskolak (5); **andredena mari** (6); **andredena maria agertu** (3); **andredena maria egunean** (3); **andredena maria elizan** (4); **andredena maria eskolako** (4); **andredena maria irian** (4); **andredena maria kari** (5); **andredena mariaren besta** (5); **andredena mariaren itxura** (4); **andredena mariari** (7); **andredena mariaz** (6); **andredena marietan** (3); **andredena mariko** (3); **andredena mariz** (6); **orriako andredena mariaren** (3)

---

andregai *iz* emaztegaia.

Gizon honek, umetatik, **andregai** bat zuen hantxe herrian, Xuana. Bernardo Atxaga
Senargai hilaren ausardia heroikoa aldarrikatzen dik orain **andregaiak**. Anjel Lertxundi
Bukatu da gerra, mututu dira turutak, eta amen, **andregaien** eta alarguntsen aieneen eztandak hartu du ordu arteko arrandi militarren lekua. Anjel Lertxundi
Igogailua solairu guztietan gelditzen zen, eta ate irikietatik **andregai** bat ikusi nuen eztei soinekoa jantzita erretratatzen ari zirena. Koro Navarro
Bai, kontxo, zure emaztea, edo zure **andregaia** ... tira, zurekin bizi zen neska txiki hura. Iban Zaldua
Deblauki galdetu nion Mathiasen **andregaia** edo bizi-laguna zenetz. Daniel Landart
Hiru **andregai** izan nituen, eta hiruretan kale. Joan Mari Irigoien
Nere **andregai** zena, edo, belarriarentzat errazago baita, izen eta guzti: nere **andregai** Miren Txoliñe zena. Iñaki Segurola
Bere **andregai** Jenesee Utley etxeko terrazara igotzera gomitatu zuen. Gotzon Garate
Frankenstein-en **andregaia**. Jasone Osoro
Andereño hau nire **andregaia** da, eta ez du komentu batean egon nahi, nirekin ezkondu baizik. Koro Navarro
Gero gizonezko bat azaldu zen agentziara esanez neska haietako bat **andregaia** zuela. Joxemari Iturralde
Andregaia gazterik hil baitzitzaion, ez zen sekulan ezkondu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Martinek bere **andregaiarekin** hitz egin nahi zuen, eta Kapistun eta Bautista harekin joan ziren. Koro Navarro
Toshiroz hitz egin dut, eta orain non ote dagoen galdetu diot neure buruari, Osakan jarraitzen ote duen ontzitegietan lanean, ezkondu ote zen azkenean bere **andregaiarekin**. Bernardo Atxaga
Aitak ordurako bilatua zion **andregaiari** ezetz esan zion, eta orduan izan ziren komeriak. Xabier Etxabe
Andregai bat dirudiela esan diot. Joxe Austin Arrieta
-Hemen daukak, Putzu, hemendik aurrerako heure **andregai** leial eta leuna izango den hau! Txillardegi
Lehendabizi **andregai** pobre bat eduki behar da, andereño pinpirin bat, gu bezalakoa, entretenigarri, eta gero diru pixka bat duen emakume bat bilatzen da ezkontzeko. Josu Zabaleta
Antzerkira joaten zen, dotore janzten zen, hilero-hilero **andregai** berri bat zuen. Josu Zabaleta
Geroztik, nere guztizko **andregai** sekretua izan da neskatila itsu euskaldun hori; betirako ezkondu baikinen, inork inoiz sumatuko ez duen sentieran. Patziku Perurena
Fernandok Saudadetik zetorrela esan zion eta jeneralak besterik galdegin baino lehen gaineratu zuen Coimbrara zihoala, hantxe baitzituen aita-amak eta **andregai** ustekoa, Ines izeneko neskatxa eder bat. Felipe Juaristi
Agian bazeukan **andregai** formala, pentsatu zuen jarraian. Joxemari Iturralde
Zazpi **andregai** birjinen kontua erraz salbatu nuen. Karlos Linazasoro
Naturak **andregai** galaiaren eder itxura hartzen du udaberria heltzen denean. Pako Aristi
Esan zidan kubatar neskak munduko neska ederrenak eta beroenak zirela eta har nezala kubatar **andregai** bat, baina benetako andregaia, ez jinetera bat. Jon Muñoz
Lagun zahar bati edo aspaldiko **andregai** bati ezagutzen nuen auzi baten inguruan aholku ematen ari nintzaiola ematen zuen. Joxean Agirre
Ordura arte inoiz ez zuen konpromisorako **andregairik** izan; harremanak izan zituen han-hemenka, baina seriotasunik gabe. Bego Montorio
-Ikusi bazenu -esan zidan- nola ibili ginen ama eta biok **andregai**-soinekoa aukeratzen, Eneko...! Joan Mari Irigoien
Neure biziarengatik egiten dut zin: Jantzi zoragarri izango dituzu soinean, **andregai**-jantziz bezala inguratuko zaituzte. Elizen arteko biblia
Ezkongai, **andregai**. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

andregai bat (12); **andregai izan** (5); **bere andregai** (3); **nere andregai** (3)
andregaia zen (3); **bere andregaia** (5); **hire andregaia** (3); **nire andregaia** (8); **zure andregaia** (4)
nire andregaiak (3)
bere andregaiarekin (7)

---

andregaitu, andregai(tu), andregaitzen da *ad* andregaia izan.

Ez ilusiorik egiteko, hala ere: **andregaiturik** zegoen, guztiz ere **andregaiturik**, historia konplikatu eta iskanbilatsu bat, zera, beste batean kontatuko zidan. Juan Garzia

---

andregaitxo *iz adkor* andregaia.

Mutil batek **andregaitxoren** bat izan eta gezurra esaten bazuen, mundu honetan inongo mutilek hartu ez duen bezalako zigorrada emango ziola. Irene Aldasoro

Hellok bazuen **andregaitxo** bat, Ursula. Josu Zabaleta

Badakizu -Ronek imintzio bat egin zuen-, bere **andregaitxoa** da. Iñaki Mendiguren

"Enkontrua"n, eskolara piper eginiko umeak pederasta sadiko bat aurkitzen du, **andregaitxoak** dituzten mutilak gogor astindu beharraz mintzo zaiona. Markos Zapiain

---

andrekale *(corpusean **andrakala** soilik) iz* barruko kalea.

Portura orduko mozkortuta geunden gehienok, ez ginen Spanish Seaman's Center-era joan etxeko gutunen bila, agindua genion moduan fucking egitera eraman genuen gure mutil handia lepoan hartuta Ontario Street karrikako **andrakalara**, denon artean ordaindu behar genion estreinakoa. Koldo Izagirre

---

andrekari *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* andrezalea.

Nire familiako batek auzoari esan zion senarra edale eta andrezale izateak aspertzen zuela eta auzoak erantzun '**andrekari** izatea igaranen zioz?, edaria ez". ETC-literatura, saiakera

Aitor Arananen Gay Hiztegia (2005) ezagunetik atereak dira hurrengoak: **andrekaria**, neskakoia, bilitisen alaba /ahizpa, emakumetxoa, aluzalea, motxinjalea, piperropila, potxonzalea, sorgina, ulertua, ulertzailea, lamia, joxe-joxepa, marimutila, mariurkulu, neskamutila eta emarkia. ETC-prentsa

---

andrekoi *izond* andrezalea, emakumezalea.

-Suspirio bat bezalakoxea da! -askatu zuen Brigida emakume pertxentak, hiru aldiz ezkondu eta hiru aldiz alargun, tabernazuloko mihi-gaiztoen esanera, senarrei emandako tratu maitasunezko eta **andrekoiaren** kariaz omen. Felipe Juaristi

---

andremaria *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz pl* abuztuan egiten diren jaiak.

Andremariei hasiera emateko, gaur, ostirala, gazte eguna ospatuko dute Azkoitian (Gipuzkoa). ETC-prentsa

Aimar Olaizolak behinik behin gozatu nahi zituen Goizuetako **andremariak**. ETC-prentsa

---

andremin *(corpusean **andramin** solik) iz pl* gaixotasun benereoa.

Bere aitak **andraminak** zeuzkan eta bortxatu egin zuen, birjinarekin sexu harremanak izanez gero sendatu egingo zelakoan. Gotzon Garate

---

andreteria *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* andre multzoa.

Afalondoan **andreteriak** (Georgek esango lukeen bezala) oportoarekin utzi gaitu George eta biok. ETC-literatura, saiakera

---

andretto ik **andretxo**.

---

andretxo *(orobat **andretxu** g.er. eta **andretto** g.er.) iz adkor* andrea, eskuarki txikia.

Hamabi urte baizik ez ditu, baina **andretxo** bat da dagoeneko. Josu Zabaleta

Herriko monumentu nazionala maistra zaharra zen, **andretxo** argal txiki bat, mundu guztiak ezagutzen zuena, gurasoei, seme-alabei eta seme-alaben umeei irakatsi zielako abezea. Koldo Biguri

Mamuak **andretxo** kaskarinen buruan baino ez dira esistitzen! Koldo Biguri

'Milesker,' esango du **andretxo** inuit zahar batek, saretik libratu eta bere bizilekurantz abiatu orduko. Joseba Sarrionandia

Kafetxoa esan du, eta **andretxoa** gogoratu dut, bere sonbreirutxoarekin, bere kipetxoarekin, Taita Diositoren laguntzatxoarekin, oineztxo. Joseba Sarrionandia

Arturo, maitea, ez al duzu zoriontsu egin nahi zure **andretxoa**? Xabier Mendiguren Elizegi

---

andretxu ik **andretxo**.

---

andrezale *izond* andreen zalea dena.

Gertatu zen behin, mosketarien kapitain gaskoin batek, d´Orthez kapitainak hain zuzen, erakutsi behar izan ziola borreroari sableari nola eutsi, ezpatari trebea baitzen, liskarzale eta **andrezale** bezain. Felipe Juaristi

Ez zaitez, (ez dut uste baina) hala bazina ere, **andrezale**, diru-gose eta tripazain agertu. Patxi Ezkiaga

Maiocchirekin, Espainian legionario ibilitako tipo ile-gantzutu eta **andrezale** batekin. Juan Garzia

---

andrezko ik **andrazko**.

---

androgeniko *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)* **1** *iz* androgenoei dagokiena.

Beste talde batekoek, berriz -estrogenoek eta esteroide **androgenikoek**-, gizakien ugalkortasunarekin daude erlazionatuta, eta haietako batzuk ugalkortasuna kontrolatzeko erabiltzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hartzaile **androgenikoen** antagonistek "Dihidrotestosterona (DHT) " hartzaile **androgenikoekin** lotzea sahiestuko dute. ETC-entziklopedia

2 ***alopezia androgeniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ilea erortzea oso arazo konplexua da; gaurkoan, gizonezkoen kasuan buru soiltasuna eragiten duten hainbat arrazoiren artean, **alopezia androgenikoari** begiratuko diogu, hau da, hormonek -androgenoek, zehazkiago esateko- eragindako buru-soiltasunari. ETC-prentsa

---

androgeno *izond* hormonez mintzatuz, bigarren mailako ezaugarri gizonezkoak sorrarazten dituena.

Egungo egunean esan ohi da sexu agerpenak direla, hormona **androgenoek** eraginda. Gotzon Garate

---

androgino 1 *izond* bi sexuak biltzen dituena.

Ezin sinestekoa da musu batek eduki dezakeen higikortasuna, krispazioak dira, soslaiak, distentsioak, karatula zemaikorrak dira, izaki **androgino** txiki eta obszeno bat, emakume helduak adats luzeekin. Jon Alonso

Landak, artea **androginoa** dela defendatzen du: sorkuntzaren momentuan berdinak direla gizonezkoa eta emakumezkoa, baina sorkuntza horri egiten zaion bigarren irakurketan gertatzen dela aldaketa, hortxe sartzen baita, bere iritziz, generoa. Ana Urkiza

2 (izen gisa) bi sexuetako ezaugarriak biltzen dituen pertsona.

Lurra ahalegindu zen hainbat munstro sortzen ere, aurpegi eta gorputzadar bitxiz eginak, hala nola **androginoa**, erdi gizon erdi andre, bien ezberdin. Xabier Amuriza

---

androide *iz* giza itxurako robota.

Batetik gizakiak eta bestetik robotak eta **androideak** bereizten zituen muga ezabatua dago, eta gizakiek ahaztua dute gizaki direla. Berria - Kultura

Star Trekzale amorratua da, ni bezala, eta Data du bere pertsonaia kuttuna, **androide** bat, bere soraiotasuna gorabehera, gizaki izatearen jakin-mina eta inbidia sentitzen dituena. Xabier Olarra

-Uste duzula -irriz zartatu zen **androidea** -, ardura tresna gisa erabilia zara, aitzur bat edo ordenadore baten antzera, eta pieza bat hausten zaizunean, baliotasun testa pasarazten dizute: barne zirkuituak erretzean zakartegi munizipalerako baizik ez zara on. Itxaro Borda

Hasieran enigmatikoa den gutasun hori, gizatalde hori zer ote den pixkanaka doa argitzen irakurlearen begien aurrean: ez dira alienak edo **androideak** ugaltzen ari direnak, ezpada artea lagun eta bide bestelako bizitza eredua besarkatu duten gizon-emakumeak. Berria - Kultura

Segituan - **androide** artifizial gisan esan zuen berriro. Fernando Morillo

Geroago, Ixiar oheratu ondoren, etxeko **androideak** prestatu eta zerbitzaturiko Meunière mihi-arraina afaltzen ari direla, amak bota dio aitari: [...]. Iban Zaldua

---

andrologia *iz* medikuntzaren zatia, gizona, eta bereziki gizonaren ugal aparatua, aztertzen duena.

Horrek sortutako poza Nazioarteko **Andrologia** Elkartera ere iritsi zen. Luis Elberdin

---

andropenia *iz* sindrome klinikoa, androgenoen mailaren urritasunak ezaugarritzen duena.

Arrazena, entelekia: klimaterioa, menopausia eta **andropenia** errudun unibertsal direla aldarrikatuko dugu, kaltetuak eta errudunak lasaiago uzteko Edorta Agirre

---

androsterona *iz*

Erakunde horren arabera, gernuan 19 nor-**androsterona** agertuz gero froga batzuk egin behar zaizkio jokalariari.Aurreko sasoiko lehen jardunaldian egin zioten analisian 19 nor-**androsterona** aurkitu zioten gernuan: positibo. Berria - Kirola

---

androzentriko *(ETCn **250** agerraldi, horietatik **165** azken sei urteetan) izond* gizonen ikuspegitik egina edo ikusia.

Hala, bada, gizasemeak ez ziren taldearen euskarri ekonomikoa, historiaren irakurketa **androzentrikoak** bestela sinetsarazi badigu ere. Luis Elberdin

Gaur egungo edukiak **androzentrikoak** dira: gizonen ikuspegitik dago dena aztertua eta planteatua. Berria - Euskal Herria

Zibilizazioak **androzentrikoak** izan dira, patriarkalak. Berria - Gaiak

Ahozko eta idatzizko hizkuntza femeninoaz, hizkuntza bidezko sexismoaz eta idazkera sexista edo **androzentrikoa** saihesteko moduez idatzi duenagatik da ezaguna. Berria - Euskal Herria

---

androzentrismo *iz* gauza guztien zentroan gizona ezartzeko joera edo praktika; gizonen ikuspuntutik soilik begiratzea.

Hizkuntz sexismoaren gaia jorratzean, honako auziak hartu behar dira aintzat, egilearen ustez: hizkuntza/hizketa bereizketa eta horrek sexismoarekin duen harremana, sexismoa eta **androzentrismoa**, hizkuntza feminizatzeko premia, eta baita genero-identitatearen eta ideologiaren arteko harremanak ere. Berria - Kultura

Osasuntsua gerta daiteke beste muturreko exajerazioa ikustea, honela errazago antzeman baitaitezke orain arte norabide bakarrean egin izan diren irakurketa partzialak, eta **androzentrismoa** eta misoginia begi bistan utzi. Berria - Kultura

---

andui 1 *iz* espezie bereko beste mikroorganismoetatik ezaugarriren batean bereizten diren mikroorganismoen multzoa.

Sinposioko gaiari zegokionez, Garaik gogora ekarri zuen gorantz egin duela aspaldion **andui** iraunkorren kopuruak, bai tratatamendua hartzen dabiltzan gaixoen artean, bai eta kutsaduraren diagnostikoa hartu berri dutenen artean ere. Berria - Euskal Herria

Bakterio **andui** jakin batzuek zenbait gaitz saihesten dituztela egiaztatua dago, esaterako. Berria - Gaiak

---

andura *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* intsusaren antzeko landarea *(Sambucus ebulus).*

Landare horrren izena **andura** da (sambucus ebulus). ETC-prentsa

Zihaurriak izen ugari du euskaraz: **andura**, akamailua, mausa, zihaurria eta zinaurria behinik bai. ETC-prentsa

Andura ("Sambucus ebulus"). ETC-entziklopedia

Zuhaixkak: txorbeltza edo karraskiloa, gartxua, gurbitza, gorostia, arbustua, elorri zuria, elorri beltza eta **andura**. ETC-entziklopedia

Fruituak 3-5 mm-ko diametroko baia more ilun edo beltzak dira, udazken buruan aurki daitezke, pozoitsuak diren zihaurri **andurarenak** ez bezala beherantz begiratzen duten infruteszentziatan. ETC-entziklopedia

Andura loratzen denean, erleek estimatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anega *iz* ale edukiera neurria, hamabi lakariren baliokidea; neurri horrek edukitzen duen ale kopurua. Haurrarekin batera, hiru urteko zekorra,

anega bat ogi-irin eta zahagi bat ardo eraman zituen. Elizen arteko biblia

Hiru hektareako mahastiak zahagi erdi bat ardo besterik ez du emango; hamar **anega** hazik **anega** bat ale besterik ez. Elizen arteko biblia

Legamiaren antzekoa da: emakume batek **anega** bat irinetan nahasten du, eta oraldi guztia harrotzen da. Elizen arteko biblia

Urrak ur-berritzat saltzen ari zena topatu nuen eta ur-berri **anega** bati beste bat nahastua zeukala antzeman nion, ur zaharrak, hutsak eta harjoak alegia. Patxi Ezkiaga

Aletan amazazpi **anega** eman izandu omen zituan. Patziku Perurena

Gero, hurrengoari galdetu zion: "Zuk zenbat zor diozu?" Hark erantzun: "Ehun **anega** gari". Elizen arteko biblia

Kintalak kintalaren, arroak arroaren eta **anegak anegaren** neurrikoak ote ziren zehaztea zen Mateoren zeregina, eta neurriok izkiriatzea nirea. Edorta Jimenez

---

aneika *adlag* milaka.

Aneika aldiz esan nion guda bat elkarrekin eginda bizirik urtetea nahikoa xantza zela, ez zela posible bigarren batetik biok onik ateratzea. Koldo Izagirre

---

aneka *iz* zakutoa.

Portoko apezpikuak gaztigatu dio idazteko gertu egon dadin, esan nahi baita Roger edo Rogeiro hau kronikagile etorri dela, hori oraintxe nabarmen gelditzen da, **anekatik** idazteko materialak ateratzen dituenean, estileteak eta oholtxoak bakarrik, bestela mandoaren tran-tranarekin tinta isuri eta letra barreiatuko litzateke. Jon Alonso

Ez zeukan **anekaren** zuloa josteko asmorik: nahi zuten guztietan egin ahal zuten ihes harriek handik. Xabier Aranburu

---

anekdota **1** *iz* gertaera bitxi edo dibertigarri baten kontakizuna. ik **pasadizo**.

Irakurleari zirrara sortuko diotelakoan nago bertoko aipamenek, **anekdotek** eta bizipenek. Ana Urkiza

Hartan, **anekdota** bat kontatu nuen nik, unibertsitateko klase batean ikasitakoa. Bernardo Atxaga

Txistea izan ala **anekdota**, eskuinak aukera zuen guztietan alderatzen zituen Agnelli eta Togliatti, barregarri uzteko: [...]. Berria - Kultura

Anekdota pare bat kontatuko dizut: lehena gure eskolei lotua, bigarrena haren sermoiei. Joan Mari Irigoien

Anekdota batek argi berezia ekartzen dio gai honi: [...]. Herria

Ondoren, aitonari buruzko **anekdota** batzuk kontatzen zizkidan amonak, malenkoniaren ertzetik: gerra garaian jende askori lagundu ziola, hau eta beste. Joan Mari Irigoien

Hamaika **anekdota** harilkatu zituzten bata bestearen segidan. Josu Landa

Hemengo gerra ostean gazte zirenei entzun dizkiedan **anekdota** eta pasarteen berdintasun hori etorri zait burura beti Pasoliniren *Gauza baten ametsa* eleberri honetako pasarteak irakurri ditudan bakoitzean. Josu Zabaleta

Hark irakatsi zizkidan Grezia eta Erromako historiako hainbat enperadore, filosofo eta bertze hainbat heroiren **anekdotak**. Joan Mari Irigoien

Anekdota horrek agerian jartzen du, beste behin, bozetara lehiatzen ziren bi hautagaien estiloen arteko aldea. Berria - Harian

Zalantzarik gabe, **anekdota** horrek frogatzen duenez, Chomskyk sakon ezagutzen zuen eta ondo bereganatuta zeukan estrukturalista iparramerrikar horren eta beste batzuen obra. Itziar Laka

Itzultzailearen mahaspasaren **anekdotatik** aparte, giro ederrean zeuden. Unai Iturriaga

Jazinto ez zela edalaria esan digute, eta hala baieztatzen du Txapastaren **anekdotak**: beroni ematen zion eguneroko bere ardo errazioa Cadizko kontzentrazio eremuan. Koldo Izagirre

Oroitzen dut, alde horretarik, usu baino usuago erabiltzen zituela signifikantza bakarra ez zuten erranak eta etsenpluak edo hainbat haritako **anekdotak**, jostetan ibiltzeko parada emaiten ziotenak. Joan Mari Irigoien

Ontzien garbitzeko artetik, kondatu gogo zituen baina kalapitarengatik ezin izan dituen **anekdotak** heldu zaizkio gogora. Eneko Bidegain

Kantu bakoitzaren atzean aitak beti zeukan **anekdotaren** bat: hari gertatutakoa, bestean ikusitakoa edo halakoari entzundakoa. Ana Urkiza

Argi daukat gehien eragiten duten gauzak ez direla agerikoak, hau da, ez ageriko gauzak eta bizipenak direla gehien eragiten dutenak, **anekdotaren** azpikoak. Ana Urkiza

Hitzak ematen dio **anekdotari** literaturarako gai izateko aukera. Anjel Lertxundi

Kontakizun hartan, aitonari entzundako zenbait **anekdotatatik** abiatuta, 1950eko hamarkadan girotutako detektibe eta pozoiketa istorio bat harilkatu nuen. Iban Zaldua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ikusten denez, **anekdota** txiki baten gainean eraikita dago eleberria. Berria - Kultura

Anekdota dibertigarriak kontatu zituen, kabaretetako nesken gertaera pipertsuak. Ramon Saizarbitoria

Garrantzirik gabeko **anekdota** hutsa da. Anjel Lertxundi

Seguru, pentsatu zuen, harentzat **anekdota** soil bat baino zertxobait gehiago izan dela. Joxemari Iturralde

Inork ez zuen ezer esan, dudarik gabe **anekdota** desatsegina iruditu zitzaielako. Ramon Saizarbitoria

Kartzela garai hartatik, **anekdota** tragiko-komiko batzuk baizik ez zizkidan kontatu: saio batzuen ondoren harrapatu eta lagun batekin jan zuen katua. Joxan Elosegi

3 (hitz elkaruetan lehen osagai gisa)

Anekdota mailan besterik ez bada ere, hemen sartu beharko genuke euskararen historia hurbileko pasarte bat: euskara batuan "h" letra erabiltzearen inguruko eztabaida, hain zuzen ere. Lourdes Oñederra

Auzitegi Nazionalean gertatzen ari direnak **anekdota** itxura hartu dute. Berria - Euskal Herria

Anekdota kontuetan ez diot inori beldurrik, itsasoko ofizialei eta profesionalei ez bada. Monika Etxebarria

Bidaiaren kronikaz gain, tokian tokiko erudizio ukitu bat eduki behar zuen, ez egunkari batek eskaini lezakeena baino gehiago hala ere, baina **anekdota** bilduma bat izan gabe. Anjel Lertxundi

4 ***anekdota bilduma***

Bidaiaren kronikaz gain, tokian tokiko erudizio ukitu bat eduki behar zuen, ez egunkari batek eskaini lezakeena baino gehiago hala ere, baina **anekdota bilduma** bat izan gabe. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anekdota bat kontatu** (3); **anekdota hutsa da** (5); **anekdota hutsean** (4); **anekdota polita da** (3); **baina anekdota** (3); **hamaika anekdota** (3)
> **anekdotaren bat** (3)

---

anekdotario *iz* anekdota bilduma.

Komodoegia da, edozergatik ere gogoko ez ditugun testu moduak baztertzea edo baliogabetzea (**anekdotario** eta bitxikerien iturri soil bihurtuz, adibidez, edo arras itxuragabeko filiazioak inbentatuz autore eta ideien artean). Koldo Izagirre

---

anekdotatxo *iz adkor* anekdota laburra.

Testuek egin dezaketen bide ezin makurragoez ohartarazi ninduen gertakariak (**anekdotatxo** honek gertakari izena merezi badu, behintzat), eta, azken batean, argitara ateratzen direnean, erabat galtzen dugula haien gaineko kontrola. gustatuko litzaidakek Julian Barnesen Flaubert's Parrot hik irakurtzea, hor aurkituko duk **anekdotatxoa**.

Iban Zaldua

---

anekdotiko *izond* anekdota izera duena.

Humanidades deitzen genuen kulturaren esparru zabal hartan, lantzen genuen, baina ia modu **anekdotiko** batez, guretzat oihartzun askoz ere urrutiagokoa zuen greziera. Anjel Lertxundi

Duela gutxiko gertakari bat horren erakuskari **anekdotikoa** izan daiteke. Lourdes Oñederra

Izan liteke, baina antzekotasun hori axaleko eta **anekdotikoa** da eraginaz mintzatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Zaude lasai, Hester, Arrue hemen jaioa ez bada ere, itsas ertzeko seme peto-petoa egina baitago -eta argitu gabe utzi zuen bere esaldiaren xede ezkutua, Noraren jakin-mina benetakoa ala **anekdotikoa** zen ezagutzeko. Anjel Lertxundi

FN alderdikoaren emaitza **anekdotikoa** izan da eta ez du boz anitzen biltzeko aukera handirik. Berria - Euskal Herria

Tarteka irainak entzuten ditugu, baina oso **anekdotikoak** dira. Berria - Harian

Anekdotikoa eta azalekoa saihestu. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anekdotikoa da** (3)

---

anelido *(corpusean ez dago; ETCn **104** agerraldi) iz* harrak, zizareak eta izainak barne hartzen dituen animalia filuma.

Anelidoak ("eraztuna dutenak") animalia filum nagusi bat dira. Ornogabeen tipo honetan sartzen dira harrak, zizareak eta izainak. ETC-entziklopedia

Bestalde, abdomena artropodoetan eta zenbait **anelido** poliketotan toraxetik atzerako segmentuek osatzen duten gorputz zatia da. ETC-entziklopedia

Dieta osatzeko anfibioak, moluskuak, krustazeoak eta **anelidoak** ere jaten ditu. ETC-entziklopedia

Glaessner-ek 1976an poliketoen taldeko **anelidoa** zela esan zuen. ETC-entziklopedia

Halaxe gertatzen da espezie hermafroditetan, zeinak ugariak diren landareen artean, baita behe-mailako animalietan ere, hala nola **anelidoetan** eta moluskuetan. ETC-literatura, saiakera

Beste batzuk **anelido** modernoen aurrekari gisa sailkatu dituzte. ETC-literatura, saiakera

Eta, jarraian makurtu, zizarea eskuan hartu, ahoa zabaldu eta irensteko imintzioa egiten zuen Domingok, hatzen artean zuen **anelidoa** askatuz -Maria Bibianak albo batetik ikusten zuen eszena- eta ahora erori balitzaio bezalakoa eginez... ETC-literatura, saiakera

Erdi-ibilguetako uraren kalitatea egokia bada, ornogabe fauna oso aberatsa izan daiteke: moluskuak, krustazeoak, **anelidoak**, intsektuak... ETC-prentsa

Itsasoa goian dagoenean hondartza eta padura ertzetan hartzen dute atseden, baina, itsasoa jaitsi bezain pronto areatzean eta lohietan, **anelido** (zizare), krustazeo (karramarro) eta moluskuz (barraskilo, lapa, txirla) elikatzen hasten dira. ETC-prentsa

Lakainketa erradiala nahikotxo urruntzen da **anelidoek** eta moluskuek duten lakainketa-patroitik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortik kanpo, zenbait mareartekoornogabe ere, gastropodoak, **anelidoak** eta nematodoak batez ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anemia 1 *iz* odol ahulezia, globulu gorrien gutxitzeak edo hemoglobina maila jaisteak dakarrena.

Leuzemia odoleko minbizia da, eta **anemia**, odoljarioak eta akidura dira haren zantzu nagusiak. Berria - Gaiak

"Nire zainetan ez zegoen artista odolik; goseak eragindako **anemia** baizik", esan izan zuen artistak. Berria - Kultura

Aitak aurpegia hain zuri ikusten zionean, **anemia** zuela esan eta burdina harrarazten zion. Fernando Rey

Hilekoarekin odol asko galtzen duten eta **anemia** izaten duten emakume batzuek Mirena DIUa jartzen dute arazo hori konpontzeko. Luis Elberdin

Oso argala dago eta baliteke **anemia** pixka bat izatea; agian, ahultasunak berak eragin dio zorabioa. Antton Olano

Anemia kaltegarria izan omen zian. Xabier Olarra

Libratzerakoan odola galtzen nuen, eta horrek izugarrizko **anemia** eragin zidan. Berria - Euskal Herria

Euskaradun Herriak inoiz animarik (jakite noblerik) izanen badu, hain zuzen ere, euskararen tradizio zaharregi horren zainetatik atera beharko du, edo **anemiak** galduko du. Patziku Perurena

Fletcherrek DBA izeneko **anemia** mota berezi bat dauka. Berria - Gaiak

Zelula horiek odolarekin zerikusirik duten gaixotasun batzuk tratatzeko erabiltzen dira hezur-mamiaren transplantearen ordez: leuzemia (haurren leuzemia barne) eta **anemia** forma batzuk, nagusiki. Berria - Gaiak

Berrogei urte baino gehiagoko emakumeen kasuan, **anemia** arazoak hilerokoarekin lotzen dituzte mediku askok. Berria - Gaiak

2 *anemia aplasiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Anemia aplasikoa zen, pilotari gazteak inoiz izandako kontrariorik gogorrena. ETC-prentsa

Curie 1934 hasieran joan zen azken aldiz Poloniara. Hilabete batzuk geroago, 1934ko uztailaren 4an, Passyko Sancellemozeko erietxean zendu zen, **anemia aplasiko** baten ondorioz. Uste da erradiazioaren esposizio luzeetatik kutsatuta zegoela. ETC-entziklopedia

3 *anemia drepanozitiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Anemia drepanozitikoa ez da unibertsala, baina senezkoa dela ondorioztatzen dugu. ETC-literatura, saiakera

4 *anemia faltziforme* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Anemia faltziforme edo drepanozitosia eritrozitoen itxura deformatzen duen gaixotasun hematologikoa da, oinarri genetikoa duena. ETC-entziklopedia

Batzuk oso ezagunak eta hilgarriak dira, **anemia faltziformea**, esate baterako; beste batzuk, berriz, adituek besterik ez dituzte ezagutzen. ETC-prentsa

Hemofilia, sortzetiko immunoeskasia edo **anemia faltziforme** bezalako odoleko gaixotasunak tratatzeko terapiak bidean daude. ETC-prentsa

5 *anemia ferropeniko* *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Anemia ferropenikoa anemia mota bat da, burdinaren gabeziaren ondorioz sortzen dena. ETC-entziklopedia

Burdinarekin lotuta dagoen osasun arazorik ezagunena **anemia ferropenikoa** da. ETC-prentsa

Burdina, beharrezkoa da hemoglobina sortzeko, **anemia ferropenikoa** prebenituz. ETC-prentsa

Anemia ferropenikoan ere laguntzen du bitamina horrek, burdina xurgatzea erraztuz. ETC-prentsa

Anemia ferropenikoa hemoglobinaren kontzentrazio baxua izatea da; galera horrek globulu gorri gutxiago sortzea dakar. ETC-prentsa

Anemia ferropenikoan ere laguntzen du bitamina horrek, burdina hartzea errazten baitu. ETC-prentsa

Esaterako, ugaltzeko adinean dauden emakumeen %80k **anemia ferropenikoa** daukate, baina hori askotan ez da tratatzen. ETC-prentsa

Burdinaren gabezia ohiko gaixotasuna da, eta sintomarik garrantzitsuena **anemia ferropenikoa** da, burdina falta baitago hemoglobina eratzeko bizkarrezur-muinean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kolore-aldaketak ondoretasunezko asalduetan (urdina osteogenesi inperfektuan, urdinxka **anemia ferropenikoan** eta abar). ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *anemia hemolitiko* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Anemia hemolitiko auto-immunea: immunitate-sistemak oker funtzionatzen du eta eritrozitoak suntsitzen ditu ETC-entziklopedia

Gibelean minbizia gara dezake edo, are larriago, **anemia hemolitikoa**. ETC-prentsa

Giltzurruneko gutxiegitasuna, **anemia hemolitikoa** -globulu gorriak hautsi egiten dira-, tronbozitopenia -plaketa kopurua gutxitu egiten da, eta horrek odoljarioak dakartza- eta, batzuetan, baita gaixoaren heriotza ere. ETC-prentsa

Oso ohikoak ez diren arren, **anemia hemolitiko** mota ugari daude, eta horien diagnostikorako erabiltzen diren testak hauek dira: ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *anemia kaltegarri*

-Anemia kaltegarria izan omen zian. Xabier Olarra

8 *anemia pernizioso* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Sintoma anormalek eta odol-azterketen emaitzek, **anemia pernizioso** ezagunenak ez bezalakoak, benetako erruduna salatu dute: radioa. ETC-literatura, saiakera

9 *zelula faltziformeen anemia* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Zelula faltziformeen anemia a gaixotasun bat zeinetan hemoglobina bestelakotuak kristal mota bat eratzen baitu odoleko zelula "gorrien" barruan, oxigenoa zainetan uzten duenean. ETC-literatura, saiakera

Hala gertatzen da hemofiliaren edo **zelula faltziformeen anemien** kasuan. ETC-entziklopedia

---

anemiko 1 *izond* anemiak jo dagoena.

Beraz, arrainak jateak buruargi bilakatzen gaitu; fosfororik gabe landareak ez dira hazten; Falières fosfatina, glizerofosfatoak haur **anemikoentzat** ehun urtetik hona. Juan Garzia

Herri horietako amak **anemikoak** dira, behar bezala ez elikatzeagatik % 40-60 kasutan. Pello Salaburu

-Ate hori itxi eta egia beste araurik uzten ez bada, aldiz, bizitza makaldu egiten da, marguldu, histu, **anemiko** bihurtzen da, triste. Josu Zabaleta

Pisukide izan nituen hiru sugegorri **anemiko** telebistazaleek nahiz Itziar negarti nekaezinak ere ez zidaten batere inbidiarik sentiarazten. Jon Arretxe

Anemikoa ene koskortxoa da, argalez bizi ezin badu ere; eztulka ia hilean dagoena makaltxoa. Xabier Amuriza

2 irud/hed

Arto jorratzaileak, sagardogileak, ardo mingarra zoanetarik mahaietara ekarleak, etxe izenak, atari ahantzi zizelkatuak, deiturak, toponimia **anemikoak** , dantzak eta kantu tradizionalak. Itxaro Borda

---

anemofilo *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)* 1 *iz* landareez mintzatuz, haize bidezko polinizazioa duena.

Badira lan honetarako aparteko berezirik gabe, haizea baliatzen dutenak, landare **anemofiloak** dira hauek, haizezaleak. ETC-prentsa

Intsektuek asteraceae familiako espezie asko polinizatzen dituzte, baina, **anemofilo** (haize-bidezko polinizazioa duen landarea) asko dago: (e.b. "Ambrosia" eta "Artemisia"). Espezie apomiktiko asko ere badago familian. ETC-entziklopedia

Anemofiloak dira eta udaberrian hostoak agertu baino lehen loratzen dira. ETC-entziklopedia

2 *polinizazio anemofilo* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Polinizaziorako haizea erabiltzen deneko kasuetan, **polinizazio anemofiloa** denean, ezaugarri hauek guztiz aldatzen dira. ETC-prentsa

---

anemometriko *izond* anemometroarena, anemometroari dagokiona.

Eta hala, ordura arte elkarteak zituen 87 behatoki plubiometriko, 54 termometriko, eta 15 **anemometriko** horietaz gainera, beste bost osatu eta konpletoen mailara igo zen gure Arantzazukoa. Pello Zabala

---

anemometro *iz* haizearen lastertasuna neurtzen duen gailua.

Eta, jakina, haize orratz bat ere behar zen, eta hari loturik, **anemometroa** , haizearen abiada neurtuko zuena. Pello Zabala

---

anemona 1 iz Anemone generoko landare belarkara, lore handi eta kolore bizikoak ematen dituena.

Koralak polipoak zaldiak trikuak izarrak barraskiloak **anemonak** . Koldo Izagirre

Mitologiak kontatzen du **anemonak** Adonisen odoletik eta Afrodita (edo Venus) jainkosaren malkoetatik jaiotako loreak direla. J.M. Olaizola "Txiliku"

Koralak polipoak zaldiak trikuak izarrak barraskiloak **anemonak** . Koldo Izagirre

Emakumea leuna da hizketan, ilea uhalen gisakoa du, masailak **anemonak** bezalakoak, aurpegia sagarraren antzekoa. Patxi Zubizarreta

Altzionarioak, antozooen subklasea da -**anemonaren** klaseko itsasoko animalia batzuk-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Makur-makur egin eta goma antzeko itsas **anemona** leunak ukitu zituen, harkaitz saihetsari erantsiak gelatina puskak bezala. Anton Garikano

2 *anemona landatu* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Anemona landatua ("Anemone coronaria") "Eguerdilili Anemone" generoko landare loreduna da, Mediterraneoan jatorria duena. Eguerdililietan, espezie tipoa da. 20-40 cm-ko altuera du. ETC-entziklopedia

3 *baso-anemona* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Baso-eguerdililia edo **baso-anemona** ("Anemone nemorosa") "Eguerdilili Anemone" generoko landare loreduna da, Europan jatorria duena. Eguerdilili hau toxikoa da eta herri sendagintzan aprobetxatu dute. ETC-entziklopedia

Pagadiko lehen loreak loratuak dira jada eta **baso-anemonak** eta gibel belarrak alaitzen dute azpi-basoa. ETC-prentsa

4 *itsas anemona*

Makur-makur egin eta goma antzeko **itsas anemona** leunak ukitu zituen, harkaitz saihetsari erantsiak gelatina puskak bezala. Anton Garikano

5 *itsas anemona arrunt* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Itsas anemona arrunta ("Anemonia viridis") Actiniidae familiako anemona da, Mediterraneoan eta ekialdeko Ozeano Atlantikoan bizi dena. ETC-entziklopedia

---

añen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* madarikazioa, biraoa.

Ez diet nahitaez miresmenik, ordea, irakurtzeko aukeratu duzun autoreari, gaiari eta haren gaineko zure sinesberatasunari, duda-mudarik gabe sinesten baitituzu Bertrand Russellen ezpaleko moralgabe batek jaurtitako **añen** arrazionalistak. ETC-literatura, saiakera

---

añeneko *iz* biraoa.

Ausardia dute nagusi, nasaikeria adiskide, indarra lege, **añenekoa** ziri ta zigor. Xabier Mendiguren Elizegi

---

anerdi *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* *iz* anega erdia.

Anerdia edo erregua zereal aleetarako edukiera-neurria da, sei lakariren baliokidea, anega-erdia hain zuzen ere. ETC-entziklopedia

Anerdia, hortaz, 24 kilo zen. ETC-prentsa

---

aneroide **1** *izond/iz* barometroez eta gisakoez mintzatuz, metalikoa dena.

Ez zuen gauza askorik: barometroa, berak asmaturiko mikrobarometroa (sentikorra demasean), termometro joko bat eta merkurio-**aneroideak**. Pello Zabala

2 *barometro aneroide* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Jacques Balmat-ek eta Michel Paccard doktoreak (azken honen nahia altuera horretan **barometro aneroide** baten balioa aztertzea zen), gailurrera iritsi eta oso-osorik jaistea lortu zuten arte. ETC-entziklopedia

3 *kutxatila aneroide* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Lucien Vidie fisikari frantsesa izan zen (Nantes, 1805 - Nantes, 1866ko apirila), **Kutxatila aneroide** edo Vidie kapsularen asmatzailea 1844an. Horrela, barometro aneroidearen asmatzailea da, Vidie kapsula erabiltzen duena presio atmosferikoen aldakuntzak neurtzeko. ETC-entziklopedia

---

anestesia **1** *iz* medikuntzan, sentiberatasun gabezia edo galera; anestesiatzea.

Anestesia eman beharko dizut. Xabier Olarra

Denok erabiltzen dugu kimika, esku artean darabilgun paperean, autoetan, telebista ikusterakoan, medikuarengana joan eta **anestesia** jartzen digutenean. Berria - Gaiak

-Ez jarri **anestesiarik**. Xabier Olarra

Ez zuten erabili eterra, baizik eta beste **anestesiaren** bat, eta handik bost minutura nire onera etorria nintzen. Xabier Olarra

Kurarearen kideko substantzia sintetikoak erabiltzen dira kirurgian (dosi txikitan) muskuluak erlaxatzeko, eta, hartara, **anestesiaren** efektuak indartzeko. Irene Aldasoro

Anestesiaren eraginpean artean, aurrean zituen gauzak -telebista piztuta, aulki bat, armairua, eskuinaldeko leihoa- oso ahul eta kolore margulduz iristen zitzaizkion. Joxemari Iturralde

Anestesiaren hondar guztiak lehenbailehen bota nahi zituen gorputzetik, iruditzen baitzitzaion gogoa eta adimena, biak, kamuts zituela. Hasier Etxeberria

Ez nuen uste **anestesiak** halako amets biziak eragin zitzakeenik. Hasier Etxeberria

Anestesiak bere lana egin aurretik entzun nituen azken hitzak izan ziren. Joseba Urteaga

Aldi berean bazenekien nekeza eta gaitza izaten dela **anestesiatik** esnatzea. Hasier Etxeberria

Gauzak txukun egitera, beraz, gertakarien ordena logikoari jarraitu beharko zioan Ripodasek: lehenbizi zuek garbitu, eta gerokoz utzi Soriaren amigdalak **anestesiarik** gabe erauztea. Aingeru Epaltza

Anestesiarik gabeko garai haietan azkartasunak gutxiagotu egiten zuen eriaren mina, eta elbarriak bizirik irauteko aukerak handiagoak ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (izenondoekin)

Ebakuntza egiteko, **anestesia** osoa eman zieten gaixoei. Berria - Gaiak

Zirujau valentziar batek hogeita hamar urtetik gora daramatza **anestesia** kimikorik erabili gabe era guztietako ebakuntzak egiten. Berria - Gaiak

Garunak berak ez du minik sentitzen; hala, **anestesia** lokalaren eraginpean agerian jarrita, nahiko xehetasun handiz azter dezake kirurgialariak, gaixoa erabat kontziente egonik eta minik sentitzeke. Irene Aldasoro

Oso operazio sinplea da, **anestesia** lokala jarrita egiten da eta ez da beharrezkoa ospitalean geratzea. Luis Elberdin

Antiseptiko iododuna ipur-masailean kotoi-zati batez eman, eta **anestesia** lokala injektatu zion, batere dardararik gabe. Xabier Olarra

Halaber, 1995. urtetik 2002ra arte nabarmen igo da erditzean **anestesia** epidurala erabiltzen duten emakumeen kopurua: %120. Berria - Euskal Herria

Anestesia epiduralarekin egiten da, eta "oso da teknika sinplea", Madinaren esanetan Leo Esteban Nietori 21 ebakuntza egin zizkioten 1989an istripua izan zuenetik; horietatik 19 **anestesia** osoarekin. Berria - Gaiak

Lasaitzeko ariketak eginarazten nizkien, eta **anestesia** psikologikoan pentsarazten nien. Berria - Gaiak

3(hitz elkartuetan)

Lagunduriko arnasketa jarri zioten eta **anestesia** dosi handia eman zioten. Berria - Harian

Epidurala **anestesia** mota bat da, berez. Berria - Gaiak

Anestesia mota ere sinpleagoa da, eta, diru aldetik, kostua askoz txikiagoa da. Luis Elberdin

Anestesia pixka bat emanda, ginbaleta hartu eta aurrean eseri zitzaidan. Javi Cillero

4 irud/hed

Anestesia lelo batek harrapatuta bezala segitu nituen partida horiek, ez gatz eta ez piper. Hasier Etxeberria

Baina guk -eta horrexegatik jakin nuen beste hiru gonbidatuen izaeraz eta minduraz- beste begi batzuekin ikusten genuen oro, **anestesiaren** edo maitasunaren begiekin, guk edaniko ardoaren ozpinduak zer berezi bat, hondar berezi bat utzi baitzuen gugan, sentiberatasun isuria biziki areagotzen zuena. Karlos Linazasoro

Baina horma lodi haien barnera gauak ez zuen lortzen sartzerik; zentsura faxistak berak, errejimenaren maisulan, mundutik bereizirik gindukan, **anestesiazko** linbo zuri batean. Juan Garzia

5 *anestesia epidural*

Anestesia epiduralarekin egiten da, eta "oso da teknika sinplea», Madinaren esanetan: "Ile baten lodierako zuntz bat sartzen da zakiletik, eta uretra zulatu eta prostatara iristen da. Berria - Gaiak

Halaber, 1995. urtetik 2002ra arte nabarmen igo da erditzean **anestesia epidurala** erabiltzen duten emakumeen kopurua: %120. Berria - Euskal Herria

6 *anestesia lokal*

Garunak berak ez du minik sentitzen; hala, **anestesia lokalaren** eraginpean agerian jarrita, nahiko xehetasun handiz azter dezake kirurgialariak, gaixoa erabat kontziente egonik eta minik sentitzeke. Irene Aldasoro

Posible da, **anestesia lokalaren** eraginpean, garun zati txikiak kentzea. Irene Aldasoro

Anestesia lokala jarrita egiten da, eta ez dago erietxean geratu beharrik. Luis Elberdin

Begi-lausoak kentzea, beraz, nahiko prozedura sinplea zen - **anestesia lokala** baizik ez zuen behar-, eta arrisku kirurgiko handirik gabe egitekoa. Xabier Olarra

Anestesia lokala jarri eta gero, bala atera zidan izterretik. Rafa Egiguren

Ebaki eta josi: **anestesia lokalarekin**, esku tinko batekin eta egonarri apur batekin, baita nork bere buruari egiteko modukoa ere, eskuliburu baten laguntzaz. Oskar Arana

Izan ere, 1989tik 21 ebakuntza egin zizkioten Leo Estebani; horietako 19 anestesia osoarekin eta beste bi **anestesia lokalarekin**. Berria - Euskal Herria

7 *anestesia orokor*

Arakatzen duzu zeure barnean eta **anestesia orokor** bat baino ez duzu aurkitzen. Hasier Etxeberria

Bestalde, umeak ez du zakilean anestesia jar diezaioten uzten; beraz, ebakuntza egitekotan **anestesia orokorra** jarri behar zaio, eta ez da komeni. Luis Elberdin

8 *anestesia oso*

Ebakuntza egiteko, **anestesia osoa** eman zieten gaixoei. Berria - Gaiak

Izan ere, 1989tik 21 ebakuntza egin zizkioten Leo Estebani; horietako 19 **anestesia osoarekin** eta beste bi anestesia lokalarekin. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

anestesia kimikoa (4); **anestesia lokala jarrita** (3); **anestesia mota** (3)
anestesiarik gabe (3)
anestesiatik esnatu (3)

---

anestesiatu, 1 anestesia(tu), anestesiatzen du *ad* anestesiko baten bidez gorputz osoaren edo haren zati baten sentiberatasun gabezia edo galera lortu.

Aurretik **anestesiatu** egin zuten, jakina. Josu Zabaleta

Begiak kristaletik urruntzera behartu zuen Mentxuk bere burua, **anestesiaturik** sentitzen baitzuen gogoa, eta ez zitzaion batere gustatzen pentsamendurik gabeko gogoetan jardutea, orduan ari zen bezala. Josu Landa

Belauna **anestesiatu** nion, jada ez zuen minik, baina buruan ez zeukan partida, belauna baizik. Berria - Kirola

Alabak belarritakoentzako zuloak egin nahi zituen eta hark bere belarriak **anestesiatzeaz** hitz egin zion. Berria - Gaiak

Izan ere, nerbio sistema aktibatzearekin batera, endorfina izeneko hormonaren jarioa handitzen da, gorputza **anestesiatuta** bezala utziz. Berria - Harian

Huraxe zen amarruetako bat: txakur ahulenaren azala gai loarazleaz espraiatu, beste zakurrak kosk egiten zion orduko lelotu eta bertan zerraldo eror zedin, nerbioak erabat **anestesiatuta**. Harkaitz Cano

Dabidek egiaz tiro egin zidanetik **anestesiatua** bezalaxe egon naiz, lozorroan Loti Ederraren antzera. Patxi Zubizarreta

Garai bertsuan, beste esperimentu batzuetan, zartada elektriko txikiak erabiltzen zituzten arinki **anestesiaturiko** txakurren garunak -ageri gorrian jarrita- estimulatzeko. Irene Aldasoro

Tximino **anestesiatuei** ikusmen-kortexean mikroelektrodoak sartu, eta estimulu koloretakoak ematean sortzen ziren potentzial neuronalak neurtzen zituen. Xabier Olarra

Gilen nekazari adiskide bilakatuak erran dit aldi batez mundu **anestesiatu** batean bizi izan naizela luzaz. Piarres Aintziart

Espreski esandakoen hariari ere lotzen zitzaion, burua eskuek sostengatuta, ukondoak belaunburuen gainean, Mentxuren adimen erdi- **anestesiatuak**. Josu Landa

2 irud/hed

Bagenekien errealitatea **anestesiatzen**. Piarres Aintziart

Haren esanetan, Rubalcaba "iaioa" da gizartea **anestesiatzen**. Berria - Euskal Herria

Gainerakoa, Egibarrek joan den astean ohartarazi zuenez, prozesua **anestesiatu** nahi izatea da. Berria - Euskal Herria

Gizartea **anestesiatu** eta alderdi politikoak banatu nahi dituzte batzuek. Berria - Euskal Herria

Desirarik gabe nengoen, **anestesiatua**. Joxan Elosegi

Bagenekien errealitatea **anestesiatzen**. Piarres Aintziart

---

anestesiko 1 *izond/iz* sentiberatasun gabezia edo galera eragiten duena.

Gerrialdean ezarritako kateter batetik botika **anestesikoak** eta opiazeoak ematen zaizkio erditu behar denari, minik sentitu ez dezan. Berria - Gaiak

Akusazioaren arabera, Juan Maeso anestesista burua drogazalea zen eta ebakuntzetan erabilitako **anestesikoa** injektatzen zuen sarritan. THGa debekatutako substantzien zerrendan sartzeaz gain, kalamuaren kontsumoa debekatu dute kirol era guztietarako, eta **anestesiko** lokalak zerrendatik kanpo geratu dira. Berria - Gaiak

2 *anestesiko lokal*

THGa debekatutako substantzien zerrendan sartzeaz gain, kalamuaren kontsumoa debekatu dute kirol era guztietarako, eta **anestesiko lokalak** zerrendatik kanpo geratu dira. Berria - Kirola

3 *anestesiko orokor* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Anestesiko orokorrak pertzepzioaren galera itzulkorra sortzen duten sendagaiak dira. ETC-entziklopedia

Etoxietanoa (dietil eterra) **anestesiko orokor** gisa erabiltzen zen garai batean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ekintza azkar eta sakoneko **anestesiko orokorra**, faringe-glotisetako erreflexua eta bihotz-biriketako estimulua mantentzen dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Farmako barbiturikoa da, eragin oso laburra duena (10-15 segundukoa) eta **anestesiko orokorra** dena. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anestesiologia *iz* mina eta bestelako sentsazioak blokeatzea xede duen espezialitate medikoa.

Pediatrian, ginekologian, **anestesiologian** nahiz erradiologian Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan dagoen espezialista falta "luze baino lehen" konponduko dela agindu du Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Gabriel Inclanek, Eusko Legebiltzarreko batzordean egindako agerraldian. Berria - Euskal Herria

---

anestesista *iz* anestesiaren teknikan aditua den pertsona.

Berak ospitalean lan egiten du, **anestesista** da. Berria - Euskal Herria

Milan Kovecevic Serbiako bosniarra abuztuan hil zen **anestesista** zen. Berria - Mundua

Endokrinoak kontsulta arteko orriak egiten ditu, eta gaixoa pneumologoarengana, **anestesistarengana**, kardiologoarengana, psikologoarengana eta zirujauarengana bidaltzen du, bakoitzak gaixoa bere arloan azter dezan. Berria - Euskal Herria

---

aneta *iz* ginbaildunen familiako landarea, lore horiak ematen dituena *(Anethum graveolens)*.

-Gerroarren lurraldean, erregea hil dakienean, gorpu osoa argizaritu, sabela ireki garbitu eta iraurbelar xehetuz eta lurringaiz gainera apio eta **aneta** haziz betea duelarik, berriz josi egiten diote, eta bere hilobian ipini. Patziku Perurena

---

aneurisma 1 *iz* arteria edo bena baten dilatazio ohiz kanpokoa.

Aneurisma bat ezin da aldez aurretik atzeman. Berria - Kirola

Aneurisma bat dut burmuinaren erdian. Karlos Zabala

Izan ere, gizonak botika batzuk hartzen zituen aortako **aneurisma** bat zuelako. Berria - Gaiak

Aortako **aneurisma** baten ondorioz zendu da Rivero. Berria - Kirola

Uranga, berriz, Egin-en kontrako polizia operazioaren ostean espetxeratu egin zuten, eta espetxean **aneurisma** batek eman zion. Berria - Euskal Herria

2 *garuneko aneurisma* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Alabaina, badira batzuk: **garuneko aneurisma** -garuneko odol hodiak ahuldu egiten dira, eta horietako bat apurtu eta odoljarioa izaten da-, buruko tumorrak eta garuneko infekzioa -meningitisa, enzefalitisa eta beste-. ETC-prentsa

Hondarrean, **garuneko aneurisma** batek jota hildako 40 urteko gizonezko batengandik jaso zuen Heidlerrek laringe berria; honek bere ehun mota bera zuen. ETC-prentsa

anexatu, anexa(tu), anexatzen du *ad* anexionatu.

atzaparrak Gaztelan sartu eta, elizak babesturik, poliki-poliki, presio eta zemaiz, intrigaz eta propaganda monastikoz, diplomaziaz nahiz bortxakeria gordinez, hedatuz joan den Botere armatua, Araba, Bizkaiko Jaurgoa, Gipuzkoa beregana bilduz, lotuz joan dena, azkenik Nafarroa piztitzarki konkistatu eta **anexatzeko**. Joxe Azurmendi

Akisgranen jaio zen eta alemana da sortzez; Napoleonek frantses egin zuen (Napoleonek eskualde aleman hura guztia Frantziari **anexatu** zion, alegia), Inperioak soldadu, eta frantsesez hitz egiten du: bizartegia apaintzen Austerlitz eta Marengoko guduen irudiak dauzka, beraz; Espainiako gerran, ordea, espainolek preso atzeman zuten eta espainola ikasi zuen. Koldo Izagirre

---

anexio *iz*

---

anexionatu, anexiona(tu), anexionatzen du *ad* zerbait, batez ere lurralde bat, beste bati gehitu.

1967an okupatutako 1.000 kilometro koadroko eskualdea 1981ean **anexionatu** zuen Israelek, hainbat herri suntsitu ondoren. Berria - Mundua

Mundu Gerraren ostean, Italiak Hego Tirol **anexionatu** zuen mahai diplomatiko batean. Berria - Euskal Herria

Herbehereen menpeko kolonia izandako Moluka Uharteak **anexionatu** zituen Indonesiak 1950ean, independentzia lortu zuenean. Berria - Mundua

Horren arabera, Israelek Zisjordanian dituen kokagune nagusiak **anexionatuko** ditu, eta ordainetan palestinarrei beste zenbait lur itzuli. Berria - Mundua

Turkiak uharteko iparraldea **anexionatzeko** mehatxua egin zuen azaroan. Berria - Mundua

Londresek Europako Batasunerako eginiko txosten batean Jerusalemen (Al Kuds, arabieraz) palestinarren auzo eta eremuak **anexionatzeko** prozesua bizkortzea leporatzen diote Tel Avivi. Berria - Harian

Palestinako Aginte Nazionaleko lehen ministro Ahmed Kureiak atzo esan zuenez, Israelek Zisjordaniako zenbait kokagune judutako lurrak **anexionatuz** gero, "bake prozesuaren hilobiratzea" izango da. Berria - Harian

Bestetik, Estatutu Berrirako Proposamenaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak Nafarroa **anexionatu** nahi duela ukatu zuen Barkosek. Berria - Harian

---

anexionista *izond* anexioaren aldekoa.

Hor Mussolinirekin jokabide **anexionista** izan zuen, eta jokabide horren lekuko da Rijeka, italieraz Fiume. Berria - Kultura

---

anezka *iz* ehundegietan, haria daraman tresna, bilbearen hariak irazkiaren gainetik eta azpitik alde batetik bestera zeharka pasatzeko erabiltzen dena.

Ingelesez oso ohikoa da *shuttle* deitzea joan-etorrian dabilen edozein ibilgailuri, autobus, tren edo espazio-ontzi, oihala egiteko edo ehuteko makinetan **anezkak** egin ohi zuen bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ehunak burdinaren ondorengo dira, ehundegiak burdinaz egiten baitira, eta ez dago irazki-hariak, **anezkak** eta ardatz kantariak bezalako tresna hain xumeak beste inola egiterik. Xabier Amuriza

Anezka baino bizkorrago doaz nire egunak, amaitzear daude, haria bukatzen denean bezala. Elizen arteko biblia

Fuela ateratzeko **anezka** poltsak erabiliko dituzte eta fuel ateratzea erregulatzeko, berriz, balbula bikoitzak erabiliko dituzte. Berria - Gaiak

---

anfeta *iz adkor* anfetamina.

Ordura arte gauza handirik ez genuen ezagutzen, alkohola bera, haxixa, eta ez oso ondo, lanza-perfumea2, Pervitin, Dexamil, beste **anfeta** gutxi batzuk, deus gutxi, azken finean. Karlos Zabala

Cacique kubata bana, zigarro bana eta **anfeta** erdi bana. Sonia Gonzalez

Bost **anfeta**, beste poltsatxo batean; hiru Tranxilium5; sei Tranquilmazin1; Saldeva bat eta Gelocatil bi; eta ondo tolestutako papela bat. Sonia Gonzalez

Batzuk dantzan, besteak eserita, taldeka hitz egiten, komunetara joan--etorrietan, perika pixka bat zenbaiten sudurretan, **anfetak** bestetzuen gorputzetako mugierak behartuz. Pako Aristi

Espero dut gaindituko zenuela **anfeta** eta alkohol gaindosia. Unai Iturriaga

---

anfetamina *iz*

Ikerketetan ikusi ahal izan dute oso maiteminduta dauden pertsonen gernuan FEA **anfetamina** asko egon ohi dela. Luis Elberdin

Neurologoen arabera, gure burmuineko sistema linbikoak feniletilamina izeneko substantzia bat sortzen du (FEA), hau da, burmuina estimulatzen eta dinamizatzen duen **anfetamina**, eta horrek poztasuna, euforia eta asaldura eragiten du pertsonarengan. Luis Elberdin

Drepresoreetan, alkohola, lasaigarriak, hipnotikoak eta disolbatzaileak dira gehien hartzen direnak; bizigarrietan, berriz, nikotina, kokaina, **anfetaminak**, eta estasia. Berria - Gaiak

Mailari eusteko **anfetaminak** hartzen hasi nintzen. Joan Mari Irigoien

Europa mendebaldean, ordea, **anfetaminak** kontsumitzen dituzte gehien. Berria - Gaiak

Komunak dira komunio horren tenpluak, eta zulo haietan, Ostia Biribila gurtu beharrean, karnetarekin egindako Lerro Zuzena gurtzen dugu, eta itsu-itsuan sinesten han dagoena kristoren gorputz kimikoa dela: **anfetamina** dagoela, kokaina dagoela, ketamina dagoela edo beste inaren bat. Iñaki Segurola

Morroi hori ez zait sekula asko gustatu, baina egoera hartan, gorputzean generaman **anfetamina** eta kokaina dosia kontuan harturik, edonorekin berriketan kateatzeko gai izan gintezkeen. Sonia Gonzalez

16 kilo **anfetamina**, lau kilo eta erdi kafeina, hiru gramo extasi eta heroina gramu bat atzeman zituen asteartean jendarmeriak Alemaniako matrikula zeukan auto batean. Berria - Euskal Herria

Komunak dira komunio horren tenpluak, eta zulo haietan, Ostia Biribila gurtu beharrean, karnetarekin egindako Lerro Zuzena gurtzen dugu, eta itsu-itsuan sinesten han dagoena kristoren gorputz kimikoa dela: **anfetamina** dagoela, kokaina dagoela, ketamina dagoela edo beste inaren bat. Iñaki Segurola

Kantuan, dantzan, esku bat beti garagardoari eusten, futbola herriaren opioa baino herriaren **anfetamina** ez ote den dudan egon nintzen. Berria - Kirola

Jokoan ere jaitsi egin nintzen, eta **anfetaminei** eta esnifatzen nuen kokainari esker eutsi ahal izaten nion. Joan Mari Irigoien

Kokaina, heroina, opioa, estasia eta **anfetaminekin** batera, indioen zeremonietan erabiltzen den peyotea zein kalamua eta LSDa legezkoak izango dira, kopuru batetik behera, betiere. Berria - Gaiak

---

anfetaminiko *izond* anfetiminarena, anfetaminari dagokiona.

Hasiera batean ospakizun **anfetaminiko** -kokainomanoa izango zela erabaki genuen. Sonia Gonzalez

Gitarra eta bateria abio bortitz batek sarrera egin zion boz **anfetaminiko** maliziotsu bati. Aingeru Epaltza

anfetatxo *iz adkor* anfetamina.

-Bale, baina diferentea dun, tarteka gustatzen zaidan niri ere **anfetatxo** bat sartzea, baina kostoarekin itsutzea beste gauza bat dun, konstanteagoa bezala, ez iruditzen? Pako Aristi

---

anfibio **1** *iz* animalia ornodun odol-hotza, lauoinduna, arrautza bidez ugaltzen dena, azala soila, bustia eta muki guruinez hornitua duena, eta heldutasuna iritsi baino lehen eraldatzea jasaten duena.

Anfibioek garatu zituzten lehenengo kontaktu estrategiak. Luis Elberdin

Anfibioak uretatik irten ziren, eta hori salto handia izan zen; orain narrastiei zegokien lehorrean bizitzeko modua asmatzea. Luis Elberdin

Arrainek, **anfibioek**, narrastiek, baita lehenengo primateek ere, hodi bakarra zuten gorozkiak, gernua eta arrautzak kanporatzeko. Luis Elberdin

Zenbait **anfibio** eta narrastik ere oztopotzat hartzen dute ezohiko argia. Berria - Gaiak

Lehenengoz lehorreratu zirenean, ordu arte ezagutzen ez zuten arraza bateko itsas animaliatxo kaltegabeen itxura zuten; laster itsas munstro basatiak zirela erakutsi zuten; eta azkenean **anfibio** harrapariak gertatu ziren, beren ur-giroan bezain mugikorrak lehorrean ere. Iñaki Mendiguren

Gizaki izan beharrean, **anfibio** izan balitz, arrabioa izanen zela iduritzen baitzait greziar zelebre hura, bere ibilera baldar eta izakera aldagaitz geldoarekin. Patziku Perurena

Anfibio batzuk arriskuan daude. Berria - Harian

Mundu osoko **anfibioen** espezien heren bat desagertzeko zorian dela ohartarazi du ikerketa batek. Berria - Gaiak

2 *izond irud/hed*

"Bizi-poza dario Bafforen poesia guztiari; bere mende hartan bizitzeko gogoa; Venezia hiri **anfibioan**, Europaren alu hezean gozatzeko gogoa", dio Apollinairek. Anjel Lertxundi

Tira bada, maitea, animalia **anfibioa** naiz: dena maite dut, guztiarekin dibertitzen naiz, jenero guztiak bildu nahi ditut. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Guayaquil herri **anfibioa** da, lurrazpi bigun lokatzezkoa. Joseba Sarrionandia

Baziren berrogeita hamar urte izeba Beatrice erizain zegoela ospitalean eta erredura hilgarriak zituztenak hartzen zituen departamentuaz arduratzen zen, orain gehienak frontetik oliotan ekartzen zituzten soldaduak ziren, **anfibioak** ziren kasik eta nire izeba Beatricek barazkizopa prestatzen zien. Fernando Rey

Euskalkia dakiena **anfibioa** dela esaten dut nik, biak erabiltzen dakielako. Berria - Euskal Herria

3 ***ibilgailu anfibio*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Horren arabera, lau Kidd destruktore, urpekoen kontrako 12 hegazkin, diesel motorra duten zortzi urpeko eta minak aurkitzeko helikopteroak zein **ibilgailu anfibioak** emango dizkiote EEBBek Taiwani datozen urteotan. ETC-prentsa

Hurrengo orrialdean **ibilgailu anfibio** bat ageri zen, telebistako gerra dokumentaletan ikusten zirenak baino sofistikatuagoa. ETC-literatura, saiakera

Bere birbiloba, Donald Roebling, filantropo eta asmatzailea izan zen eta **ibilgailu anfibioa** asmatu zuen. ETC-entziklopedia

---

anfibioki *adlag* anfibioen moduan.

Gorputza borondatearen lokarrietatik eten eta dardararaziz **anfibioki** librea sentituko zara beso, zango eta oin geldigaitzen marea horretan. Joseba Sarrionandia

---

anfibol *(corpusean **anfibole** soilik) iz* kalzio, sodio, potasio, magnesio eta burdina silikatoen eta beste metal batzuen taldeari dagokion minerala.

Amiantoa XIX. mendean erabiltzen hasitako beira zuntz bat da, eta bi multzotan bereizten da; **anfiboleetan** eta serpentinetan. Berria - Ekonomia

---

anfibolita *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi) iz* nagusiki anfibol mineralez osatutako arroka metamorfiko eta igneoa.

Anfibolita arroka metamorfiko eta igneo mota bat da, nagusiki anfibol mineralez osatua dagoena. ETC-entziklopedia

Beheko aldearen arrokarik zaharrenak peridotitak dira, ondoren serie kalkoalkalinoaren barne sartzen diren basalto, **anfibolita** eta arroka bolkaniko feltsikoak aurkitzen dira. ETC-entziklopedia

Izan ere, soilik mikak dituzten arrokek garatzen dute foliazioa, beraz kuartzitek, marmolek eta **anfibolitek** ez dute foliaziorik. ETC-entziklopedia

Bigarren mailako mineral bezala biotita, piroxenoa eta **anfibolita** ditu. ETC-entziklopedia

Hornblenda, arroka askoren zati da, granitoa, gneissak. **Anfiboliten** osagai nagusia da. ETC-entziklopedia

Burdin eta magnesio gehiago dutenak matrize ilunagoak sortzen dituzte, baita **anfibolita** eta piroxeno fenokristalak ere. ETC-entziklopedia

Eskuinetik ezkerrera, eraldatu gabeko arrokaren, milonitaren eta ultramilonitaren arteko trantsizio progresiboa, Ness-eko **anfibolitan**, Lewis-en. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arroka batean mineral batzuk nagusitzen badira, mineral horien izena hartzen du arrokak, hala nola **anfibolita**, kuartzita, marmola (kareharri kristalinoa), mikazita eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anfibologia *iz* hitz batek edo esaldi batek testuinguru batean duen zentzu bikoitza.

Halako topika transzendental baten gabezian, eta beraz, hausnarketa-adigaien **anfibologiaren** bitartez iruzurtua, Leibniz sonatuak munduaren sistema intelektuala antolatu zuen edo, hobeto esanda, gauzen barneko antolaera ezagutu zuela sinetsi izan zuen. Ibon Uribarri

Arrazoimen kritikoak berrezagutu ezin dituen eta **anfibologia** transzendental batean soilik oinarritzen diren oinarri-esakuneak, h[au] d[a], adimen hutsaren objektuen eta agerpenen arteko nahasketan. Ibon Uribarri

Adimenaren erabilera enpirikoa transzendentalarekin nahastean sortzen den hausnarketa-adigaien **anfibologiaz**. Ibon Uribarri

---

anfibologiko *izond* anfibologia duena.

Horien arteko batzuk balio anitzekoak dira, baina ezjakinek horiek erabiltzen diren adieretako batean hartu ohi dituzte; beste batzuek metaforikoak dira, eta horiek ere metaforaren jatorrizko adieran ulertzen dituzte, eta badira, halaber, **anfibologikoak** ere, ustez maiz deitzailetzat erabiliak, beste batzuetan balio anitzekotzat jotzen diren arren. Xabier Kintana

Izen balioanitz, metaforiko edo **anfibologikoez** berak beti ulertu edota bestek ulertarazi dioten adieragatik noraezean dabilena. Xabier Kintana

Edonola ere, *-sèlem* izena, horien antzari eta idoloei emana, egiturari eta jasari ere badagokiela onartu beharko balitz ere, hitza balio anitzekoa edo **anfibologikoa** litzateke, eta ez luke soilki forma espezifikoa adieraziko, baina forma artifiziala ere bai, eta gorputz fisikoen egitura analogoak eta haien kanpoko itxura ere bai. Xabier Kintana

---

anfiktioi *iz* Antzinako Greziako diputatu mota.

Zin egiten dut inoiz ez dudala suntsituko **anfiktioien** hiririk, eta ez dudala desbideratuko haien ur-korronterik; inork horrelakorik egin baleza, gerra deklaratuko diot, eta hiriak

suntsituko dizkiot. Iñaki Iñurrieta

---

anfioxo *iz* arrain itxurako animalia kordatua *(Branchiostoma lanceolatum)*.

Gero, gizakian, izainean, nematodoan, **anfioxoan**, hidran; hots, azterturiko animalia guztietan aurkitzen da gene multzo bat euliaren HOM geneenaren oso antzeko egitura duena. Juan Garzia

---

anfipatiko *(corpusean ez dago; ETCn **71** agerraldi) izond* mutur bat urkorra eta bestea disolbaezina dituen molekula.

Prozesu horren eraginez, molekula **anfipatikoak** faseartean geratzen dira -likido-likido, likido-lurrun nahiz likido-solido faseartean-. ETC-zientzia, zuzenbidea

Fosfoglizeriodek buru polarra eta isats hidrokarbonatu apolarrak dituztenez, lipido **anfipatiko** (anfi: 'biak'; pathos: 'jasan') deritze. ETC-zientzia, zuzenbidea

Emultsionatzaile hauek anfifilikoak (**anfipatikoak**) izatea dute bereizgarri, hau da, aldi berean zati hidrofiliko bat eta hidrofobiko beste bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

1. kapituluan azaletik azaldu dugun bezala, zelulako mintz bakoitza lipido molekula **anfipatikoz** osatutako geruza bikoitz bat da (hau da, eskualde hidrofilikoa eta hidrofobikoa dituena). ETC-zientzia, zuzenbidea

Diterpenoen egitura du, hau da, lau isoprenoz osaturik dago eta katearen muturrean hidroxilo talde bat du, horregatik molekula **anfipatikoa** da. ETC-entziklopedia

Molekula **anfipatikoa** da, hau da, zati hidrofilo bat eta zati hidrofobo bat ditu. ETC-entziklopedia

Mintz zelularra bikapa-lipidikoa da, hau da, fosfolipido **anfipatikoz** osatuta dago. ETC-entziklopedia

Mutur batean daukan hidroxilo taldeari esker molekula **anfipatikoa** da. ETC-entziklopedia

Gantz-azidoak heteropolarrak edo **anfipatikoak** dira, izan ere buru-polarra (karboxilo taldea) eta isats-apolarra (hidrokarburo katea) dute. ETC-entziklopedia

---

anfiprostilo *izond* tenpluez mintzatuz, bi fatxadetan portikoa eta zutabeak dituena.

Tenplu-tipo nagusiak, tenplu guztien kanpoko itxura mugatzen edo finkatzen dutenak, hauek dira: lehenengo eta behin, in antis izenekoa, grekoek naos en parastasin deitzen dutena; ondoren, prostilo, **anfiprostilo**, periptero, pseudodiptero, hipetro izenekoak. Santiago Iruretagoiena

Tenplu **anfiprostiloak** prostiloak bezala dauzka elementu guztiak, baina atzeko aldean, gainera, koloma batzuk eta frontoia ditu, aurreko aldean bezala. Santiago Iruretagoiena

---

anfitalamo *iz*

Prostasaren ezker-eskuin logelak daude jarrita, horietako bat talamoa deitzen dena, eta bestea **anfitalamoa** esaten zaiona. Santiago Iruretagoiena

---

anfiteatro *iz* eraikuntza handia, biribila, erdian harea duena eta alboak mailadiz hornituak dituena.

Berrehun bat ikasleek Parisko Sorbonako **anfiteatro** bat okupatu zuten atzo. Berria - Ekonomia

Mundua bildu da kolpatuaren inguruan, haur eta larri, buruen jira osoa eratuz **anfiteatro** baten moduan. Xabier Mendiguren Elizegi

Adierazgarria da zezenketa espainiarraren tradizioa Frantziako hegoaldean Euskal Herrian bezain indartsua izatea, Veronan ez da **anfiteatroa** horretarako erabiltzen, zezenketa odolaren espektakulua da, hilketarena. Mikel Hernandez Abaitua

Igande batzuetan herriak zezenketak antolatzen ditu eta plaza hau dauka **anfiteatrotzat**, parapetoaren luzean zoruan iltzaturiko zutabeetarako lotuneek erakusten duten bezala. Koldo Izagirre

Zer zela eta erakutsi behar zitzaizkion, bere gordintasun guztian, **anfiteatroko** gertaerak? Karlos Linazasoro

Anfiteatroa okupatzen ari dira ikasleak bart gauetik. Juan Garzia

Merkuriori, ordea, foroan egingo zaio, edota Isis eta Serapisenak bezala, merkatuan; Apolorena eta Bako aitarena, teatroaren inguruan; Herkulesena, gimnasiorik edo **anfiteatrorik** ez daukaten hirietan, zirkuan egingo da. Santiago Iruretagoiena

Erran zuen, halaber, haraindiko erriberan Hilezkorren Hiri garaia aurkitzen dela, babestarriz eta **anfiteatroz** eta tenpluz josia. Juan Garzia

Hogei bat lagunen artean, zatikako **anfiteatro** moduko bat eraikia zuten. Juan Garzia

Bihar informazio bilera antolatuko dute Baionan, unibertsitateko **anfiteatroan**, 20: 00etan. Berria - Euskal Herria

Irailaren 11ko atentatuen urteurrena dela eta Ennio Morricone musikari italiarrak *Voces del silencio* obra estreinatuko du Veronako Arena **anfiteatroan**. Berria - Kultura

Irailaren 16an, ortzirale aratseko 8.30etan, Baionako Gaztelu Berriko **anfiteatroan**, mintzaldi eztabaida bat iraganen da gai huntaz: "Nola bizi gure nortasuna kultura askotako gizartean?". Herria

Nîmeseko **anfiteatro** erromatarra gogoratzen dut batez ere, behin bakarrik egon ginen Nora eta biok, oso **anfiteatro** ederra da, Arleskoaren antzekoa baina pixka bat txikiagoa. Mikel Hernandez Abaitua

Bere egiturak, **anfiteatro** natural batean eserita, ikuspen ezin hobea ahalbidetzen du harmailetako leku guztietatik. Berria - Kirola

Ivan Revinskyk hartu zuen bigarren erabakia, zirkuaren inguru osoa banku korritu ilaraz betetzea izan zen, **anfiteatro** eramangarriak sortuz, antzinako Erroman ohi zutenez, Ez zitzaien, nonbait, gaztigu agerikoa gehiegi atsegin izan **anfiteatro** urrunean zeudenei, eta, erantzun gisa barre-karkara lazgarri bat irten zen han goitik, zenduak zut jartzeko moduko mamu-oihu bat. Harkaitz Cano

---

anfitrioi **1** *iz* bere mahaian konbidatuak dituen pertsona.

Erasoen ondorioz, Gleneagles herrian (Eskozia) herenegun gauetik bildutako G8 taldeko agintariek bertan behera utzi zituzten hainbat eztabaida, eta bileraren antolatzaile eta **anfitrioi** Tony Blair, Erresuma Batuko lehen ministroa, Londresera joan zen. Berria - Harian

Hiruek frantsesez egiten badute ere, **anfitrioi** dirudiena ingelesa da; hala salatzen du, behintzat, haren doinuak. Anjel Lertxundi

Orduan **anfitrioia** hurbildu eta esan omen zion, zer ari haiz zerrikeria hori edaten? Bernardo Atxaga

Behin egongelan, **anfitrioiak** errezela lodiak itxi, eta argia itzali du. Anjel Lertxundi

Agustin Salinasi eginiko omenaldiaren barruan zurginaren arkatza omendu nahi izan du **anfitrioiak**. Berria - Kultura

Anfitrioiak besotik heldu zion emakumeari eta alboko gelaraino eroan zuen. Mirentxu Larrañaga

Belus arrosazko mitxoletak kiribildurik zeramatzan emakume ile-urrekarak ibilera jauzkari bezain isil-misilean zeharkatu zuen jendez mukuru zegoen gela, eta tinko heldu zion **anfitrioiari** beso meharretik. Mirentxu Larrañaga

Anfitrioiak egin zuen aurkezpena; eta Beltzak agur-keinua. Mirentxu Larrañaga

Botila atera eta eskaintza eginen da, baina harrezkero denak izango zarete gonbidatuak eta **anfitrioiak**. Joseba Sarrionandia

2 (izenondoekin)

Hain marea sikua izan zen non oinak busti gabe pasea baitzitezkeen marearen marrako area gogorraren gainean bai bera bai David jauna eta Bibi andrea **anfitrioi** ospetsuak. Bego Montorio

Badakizu Pickfordi eta Fairbanksi kendu diezula hiri distiratsu honetako **anfitrioi** nagusiaren titulua? Fernando Rey

Ez du **anfitrioi** lehiatsuarena egiten, ez die edari bat eskaintzen, baina hau esaten die: [...]. Oskar Arana

Hollywoodeko **anfitrioi** estraofiziala. Fernando Rey

Anfitrioi erneak, aukera ikusi zuen batean, Gizadiaren alde altxatu zuen kopa eta, topaldikoa edan zutenean, leiho bat zabaldu zuen, esanguratsu. Irene Aldasoro

Gure andre **anfitrioi** lerdenak, Caleb Smithers botika patentatuen errege eta gizateriaren ongile handiaren dirutza handia jasotako alargun oinordekoak. Fernando Rey

3 (hitz elkartuetan)

Garatek bete zuen **anfitrioi** lana, agiria irakurri eta ekimenaren nondik norakoak azalduz. Berria - Euskal Herria

Narros jauregiko markes jauna **anfitrioi**-lanak egiten ari zen mahaiburutik. Anjel Lertxundi

Antza denez, nolabaiteko erantzukizuna sentitu du nirekiko, eta **anfitrioi** lana ahalik eta ondoen betetzen saiatu da. Jon Arretxe

-Jaun-andreok, barrura, mesedez -eskatu zien Einsteinek, **anfitrioi** papera hartuz. Fernando Morillo

4 (izenondo gisa)

Ultimatuma emateko eta haustura gertatzeko moduak gogoetarako gaia izan dira Erakundean: arlo diplomatikoan egokia izan ote zen, herrialde **anfitrioia** zer lekutan uzten duzun. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erantzun zion anfitrioiak** (9); **esan zion anfitrioiak** (5)

---

anfora *iz* buztinezko ontzi luzea, bi eskutoki dituena, greziarrek eta erromatarrek janariak, batez ere aleak eta edariak garraiatu edo eramateko erabiltzen zutena.

Haren sabela, berriz, pegar bat bihurtzen zen edo **anfora** bat, Omar Kayyanen poemetako ardorik gozoena gordetzen zuena. Joan Mari Irigoien

Imajina ezazu lau kiribil lodi, pitxar sabeldu eta astundu moduko bati eusten, honen buruan pegar klasiko delako bat duela, urna esaten zaien horietarik, **anfora** baten eta botijo baten uztartzetik sortua iduri. Koldo Izagirre

Ulertzekoa zen jendearen irudimenak ardotarako **anfora** haiek mamu bihurtu izana. Josu Zabaleta

Dozena bat **anfora** damasko-ardo erosi duena ez da harrituko haietako baten barruan talisman bat edo sugegorri bat topatzen badu. Juan Garzia

2.000 urte barru aurkituko dituzte, agian, urrezko txanponak greziar **anforen** barruan aurkitu ohi dituzten bezala, Marseilla inguruko ur epeletan. Jon Muñoz

Anforak zigilatzen zituen igeltsua marazki urreztatzen zen. Juan Garzia

---

anfotero *(corpusean ez dago; ETCn **43** agerraldi) iz* oxidoez mintzatuz, azido gisa eta base gisa ari daitekeena.

Metodo berezien bidez prestatzen ez denean, gelatina **anfoteroa** izaten da, eta, ondorioz, gai aktibo ioniko askorekin bateraezina. ETC-zientzia, zuzenbidea

Printzipio aktibo **anfoteroek** azido nahiz base gisa joka dezakete, inguruaren pH-aren arabera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azido zein base izan daitezkeen molekulei **anfotero** deritze (ampho, grekoz, "bata zein bestea"). ETC-zientzia, zuzenbidea

Konposatu batzuk **anfoteroak** dira; hau da, azidoen eta baseen portaera izan dezakete. ETC-zientzia, zuzenbidea

Analito neutroen (azidoak, **anfoteroak**, gatz organikoak) banaketarako HPLC motak eta ezaugarriak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aluminioa elementu **anfotero** bat da, soilik inguru basiko eta azidoetan disolbatzen delako. ETC-entziklopedia

Ondorioa: aminak, ura bezala, **anfoteroak** dira protoi bat eman edo har dezaketelako. ETC-entziklopedia

Oganeson oxidoak, OgO eta OgO2 oxidoak **anfoteroak** direla aurresaten da. ETC-entziklopedia

---

angaila *iz ipar* angarila.

Angaila batean estekatzen zaituzte. Ramuntxo Etxeberri

---

angailari *iz ipar* angaila eramaten duena.

Lurdeko **angailariek** muntatzen dute meza bat Alduden helduden igande ekainaren 1 ean 3 ak eterditan Baleako eri eta xaharrendako. Herria

Gure kantonamenduan, denen bultzazaile: Pierre FORMARO Arrosakoa eta Lurdeko **angailari** eta erizainak. Herria

Etorri nahi duenak abisa beza **angailari** edo Lurdeko erizain bat. Herria

---

angarila *iz* eriak eta zaurituak eramateko eramateko andak.

Baiarte: ohatila, **angarilak**. Patxi Ezkiaga

---

angarilari *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* angarilak edo andak eramaten dituena. ik **andalari**; **andari**; **andazain**; **kamillero**.

Atera zuten **angarilariek** santu hartua lepoan, igaro ziren pendoiak, elizgizonak, agintari zibil eta militarrak haien gibel eta, zuzendariak agindua eman zuenean, lauzpabost txio aldrebes eta erritmorik gabeko dunbel hots pare bat besterik ez omen ez entzun. ETC-prentsa

---

angeles ik **ingeles**.

---

angelu *(orobat **angulu** g.er.)* **1** *iz* elkar ebakitzen duten bi lerrok edo bi gainaldek osatzen duten irudi geometikoa, gradutan neurtzen dena.

Talde gehienek duela urte batzuk **angelu** hau utzi eta 90ekoa darabilte, teorian oreka hobea ematen duena. Berria - Kirola

Kono bakar bat beteko duen irudi bat sortzeko, minutu erdi inguruko **angelua** eratu behar du objektu batek begian; minutua, neurri angeluarrean, gradu baten hirurogeirena da; minutu erdia, 180 m-ra dagoen 2,5 cm-ko objektu bati dagokion angelua da. Irene Aldasoro

Eguzkiaren diskoak 30 minutuko **angeluko** diametroa du, eta Artizarrarenak, berriz, minutu batekoa. Berria - Gaiak

Horietako batek gorputz bat zeharkatzen duenean haren inguruko espazioa luzatu eta zapaldu egiten da, **angelu** zuzen bat marraztuz. Berria - Gaiak

2 ikuspuntua.

70 birus hautatu zituzten aurrena, bakoitzaren ehunka irudi atera zituzten segidan, hainbat **angelutatik**; ondoren irudi horiek guztiak programa informatiko baten bidez konbinatu, eta horrelaxe lortu dute orain birusaren irudi berria publiko egitea. Berria - Gaiak

3 ***angelu auzokide*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Geometrian, plano batean, **angelu auzokideak** erpin bera duten eta alde komun bat duten bi angelu dira. ETC-entziklopedia

Printzipio geometriko honetan dago oinarrituta triangelatzea: triangelu baten alde bat (oinarri-lerroa) eta horren **angelu auzokideak** jakinez gero, beste bi aldeak eta falta den angelua kalkula ditzakegu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Argi moteleko gelako izkina horri **angelu auzokidea** deritzo, daukan gauzarik aldamenekoena delako, horretaz landa ez baitio ezeri erreparatzen ia-ia, ezta hainbeste ordu sartzen dituen oheari ere. ETC-literatura, saiakera

4 *angelu betegarri* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Angelu betegarria angelu jakin bati 180° edo pi radian osatzeko gehitu behar zaion angelua da. ETC-entziklopedia

Angelu laua, angelu osoa, angelu konbexua, angelu ez-konbexua (konkaboa), angelu kongruenteak, angelu osagarriak, **angelu betegarriak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *angelu diedro* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Angelu diedro bat, edo diedro bat zuzen batean mozten diren bi planok euren artean duten angelua da. ETC-entziklopedia

94 Bi planoren arteko angeluari **/angelu diedro/** deritzo, eta zuzen komuna duten bi planoerdik mugaturiko espazio-zatia da. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *angelu garraiagailu* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Geroxeago, hirugarren DBHko ikasleek **angelu garraiagailuarekin** egin zuten kalkulua. ETC-prentsa

Oso lagungarria da plastiko gardenez egindako triangelu bat erabiltzea, kameraren ohiko objektibo-angeluak markaturik dituena ("plano-marrazlea" deritzo), edo, bestela, **angelu-garraiagailu** bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tresna optikoak burbuilazko nibelarekin eta gradu-zirkulu bertikalarekin konbinatuta (gradutan banatutako **angelu-garraiagailu** zirkularra), angelu bertikalak ere neurtzea ere posible zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Marraztu ezazu mapan egin beharreko ibilbidea adieraziko duen lerroa, eta kalkula ezazu norabidea zirkulu edo **angelu-garraiagailu** bat erabiliz. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *angelu inskribatu* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Geometrian, **Angelu inskribatua** erpina zirkunferentzian duen eta aldeak zirkunferentziaren kordak diren angelua da. **Angelu inskribatuaren** aldeek eratutako zirkunferentzia-arkuaren angelu zentralaren erdia da haren balioa. ETC-entziklopedia

8 *angelu itsu* *(corpusean ez dago; ETCn **40** agerraldi)*

Han, **angelu itsu** batean, eraso egiteko noiz aginduko zain zeuden. ETC-literatura, saiakera

Laugarren gauza, jakina, lasaitasuna da, eta aukeratutako dendan **angelu itsu** bat topatzea, dendariak edo dendariek dauden lekutik kontrola ezin dezaketena. ETC-literatura, saiakera

Gainera, kamerak ere baziren, eta **angelu itsu** bat bazegoen ere, atezaina ez zela mugitu frogatzeko balio izan zuten. ETC-literatura, saiakera

Nik eskua luzatu eta zu agertu bitarteko tartea da beraz zulo beltza, **angelu itsua**. ETC-literatura, saiakera

Angelu itsu batean bizi da, lasai. ETC-literatura, saiakera

Pornoa arazotsua da arrazoiaren **angelu itsuan** jotzen duelako. ETC-literatura, saiakera

Zorionez, kaleak halako bihurgunea hartzen zuen, eta, horrela, **angelu itsuan** gerturatu zitekeen, tiratzailearen ikusmiratik kanpo denbora guztian. ETC-literatura, saiakera

" **Angelu itsuan** nago, leku perfektua da, inork ez nau ikusten?", diozu Ángulo muerto kantuan. ETC-prentsa

Ez dakit zergatik ez nuen zaindu **angelu itsu** hu-ra. ETC-prentsa

Kartzela izeneko mundu horretan, idazle preso ohiak gizarteko **angelu itsua** deitzen duen horretan, hizkuntzaz, izenaz eta izanaz erauzia da gizakia ez gelditzeko baina. ETC-prentsa

"Gizartearen **angelu itsuei** buruz hitz egiteko beharra sentitzen nuen", azaldu zuen zuzendariak, lanaren izenburuari erreferentzia eginez. ETC-prentsa

Posible zen aldi guztietan harresiak maldetan eraikitzen ziren, ikusmen **angelu itsuak** saihesteko eta horrek paramentuen altuerari eragin zion. ETC-entziklopedia

9 *angelu kamuts*

Harresiak alde hauetatik segitzen zuen, **angelu kamutsa** eginez, oso irekia, zuzenean zihoalarik gotorlekuko harresira, horrela ixten zen hiriko gerriari inguratzea. Jon Alonso

Baina ziega hain zen txikia, ezen bazirudien zokoak ez zirela angelu-zorrotzak, **angelu-kamutsak** baizik, eta erdira bultzatzen zutela. Jose Morales

10 *angelu lau* *(corpusean ez dago; ETCn **49** agerraldi)*

180 gradu hirurogeitarreko angeluari **angelu lau** edo angelu lerrokide deritzo. ETC-entziklopedia

Hiru angelu diedro eta hiru **angelu lau** eratzen dira. ETC-entziklopedia

Horretaz gainera, badira beste bi unitate: **angelu lauaren** kasurako, radiana da SI unitate osagarria, eta rad da ikurra. ETC-zientzia, zuzenbidea

Demagun, kasurako, **angelu laua**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egiazta ezazu paperezko triangelu baten hiru barne-angeluen batura **angelu laua** dela (180?), guraizeekin moztuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 *angelu-neurtzaile* *iz* angeluak neurtzeko tresna.

Mapamundi bat, erregelak eta angelu-**neurtzaile** bat. Joan Mari Irigoien

Mapa bat hartu hemendik, bertze bat handik, erregela eta angelu-**neurtzailea** eskuan, sukarrak hartua bezala bere kalkuluak egiten Joan Mari Irigoien

12 *angelu osagarri* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Formula horrek arazo bat dauka: arkusinu funtzioak bi **angelu osagarri** itzultzen dituela, eta bietatik zein den zuzena asmatu behar dugula, deklinazioa egun batetik bestera hazten ala gutxitzen ari den. ETC-zientzia, zuzenbidea

Fosilaren simetria-ardatzaren eta X'-ren arteko jatorrizko angelua? bada, 90º-koa izango da simetria-ardatzarekiko perpendikularraren eta X'-ren arteko **angelu osagarria**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi **angelu osagarri** edo betegarri izateko elkarren ondoan egon behar al dute? ETC-zientzia, zuzenbidea

13 *angelu poliedro* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Angelu poliedroa hiru zuzenerdi edo gehiago ez-planokidek erpina deituriko puntu batean jatorri bera dutenean sortutako planoek mugatzen duten espazio-zatia da. ETC-entziklopedia

14 *angelu solido*

Argiaren intentsitatea **angelu solidoko** banako bakoitzeko fluxu gisa definitzen da; kandelatan adierazten da; 1 kandela (cd) kandela baten garrak plano horizontalean ikusita ematen duen intentsitatea da gutxi gorabehera. Josu Zabaleta

15 *angelu triedro* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Angelu triedroak bat, bi, edo hiru angelu zuzen izan ahal ditu; kasu horretan, **angelu triedro** angeluzuzena, biangeluzuzena edo hiruangeluzuzena deitzen da, hurrenez hurren. ETC-entziklopedia

16 *angelu zentral* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Geometrian, **angelu zentrala** zirkunferentziaren bi erradioren arteko angelua da. ETC-entziklopedia

-Sektore zirkularra, **angelu zentral** batek eta zirkunferentziaren arkuak mugaturikoa, ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *angelu-zorrotz*

Baina ziega hain zen txikia, ezen bazirudien zokoak ez zirela **angelu-zorrotzak**, angelu-kamutsak baizik, eta erdira bultzatzen zutela. Jose Morales

18 *angelu zuzen* 90°-ko angelua.

Angelu zuzen guztiak berdinak dira beren artean. Jon Muñoz

Hiru lerro zuzenen bitartez mugatua dagoen figuran hiru angelu daudela zuzenki ezagutzen da; baina angelu hauek batera bi **angelu zuzen** direla inferitu baino ez da egiten. Ibon Uribarri

Kartzela berria zen, aseptikoa, dena ertz eta **angelu zuzenak**. Iban Zaldua

Angelu zuzenean ebakitako horma handi bat da fatxada. Koldo Izagirre

Pasabideak **angelu zuzen** bat egin zuen eskuinerantz, gero beste bat ezkerrerantz. Jon Alonso

Laukizuzen ia perfektu bat, **angelu zuzenetan** elkar ebakitzen zuten kale nagusiz zeharkatua. Jon Muñoz

19 ***barne angelu*** *(corpusean ez dago; ETCn **143** agerraldi)*

Geometrian **barne angelua**, amankomuneko mutur bat duten poligono baten bi aldek osatutako angelu bat da, eta poligonoaren barnean dagoena. ETC-entziklopedia

Koadrilatero konbexua (**barne-angeluren** bat 180º baino handiagoa da). ETC-zientzia, zuzenbidea

Hormak eta sabaiak osatzen duten **barne-angelua** ezabatzearren sabaiaren ertzean ezartzen den gainazal ahurra. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esate baterako, irudi baten **barne-angeluen** batura zenbatekoa den egiazta dezake irudiaren erpinak guraizeekin moztuz eta moztutako puntak berrantolatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

20 ***kanpo angelu*** *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Poligono baten **kanpo-angelua** poligono baten ondoz ondoko aldeen artean, lehenaren luzapenak eta bigarrenak perimetroaren kanpotik eratzen duten angelua da. ETC-entziklopedia

Poligono erregularretan, angelu zentralak eta **kanpo-angeluak** berdinak dira. ETC-entziklopedia

Zirkunferentzia batekiko **kanpo-angelua** erpina zirkunferentziatik kanpo duen eta bi aldeak zirkunferentziaren ebakitzaile edo ukitzaile dituen angelua da. ETC-entziklopedia

21 ***sarrerako angelu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Profilen irteerako angelua definiturik, **sarrerako angelua** zehaztu daiteke, diseinu-baldintzetan erasoa nulua dela joz gero, baldin eta, profilen sarrerarainо, fluxuak bolutan duen batezbesteko ibilbiderako adierazitakoa aplikatzen bada. ETC-zientzia, zuzenbidea

22 ***tiro-angelu*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Maringaud eta haren lagunak "**tiro angeluak**" bilatzen ari dira beira hautsien hots kristalkaren artean. ETC-literatura, saiakera

Antzinean, artilleriako piezen **tiro-angelua** zehazteko erabiltzen zen. Kanoietan leku desberdinetan instalatzen zen **tiro-angeluaren** balioa milarenetan neurtzeko Nonio Vernierren neurketaren eskala eta gailuak zuen nibela erabiliz. ETC-entziklopedia

---

angeluanitz *izond* angelu asko dituena.

Haziak ezberdinak izanez gero, poroak deritzegun tarteek eta hodiek ere ezberdinak izan behar, lohadar guztietan, baita mihian eta aho-sabaian ere: txikiagoak eta handiagoak izan behar, batzuek triangeluarrak, beste batzuek karratuak, askok borobilak eta asko era askotako **angeluanitzak**. Xabier Amuriza

---

angeluar[1] *izlag/iz* Angelukoa, Angeluri dagokiona, Angeluko biztanlea.

Partida ondoan, **angeluar** jokolariek txalo zafarrada ukan dute, behatzaile guziek jar lekuetan xutiturik agurtu dituzte zelai gainean beren izerdia gogotik eman duten mutilak. Herria

Kontrakoen artean ezagunenak Jean Espilondo eta Guy Mondorge **angeluar** jakobinoak dira. Berria - Euskal Herria

Baionesak eta **angeluarrak** lanak izan dituzte kubanoak jotzeko. Herria

Partida guzian, osoki horiz beztituak ziren **angeluarrek** joko ederra egin dute eta burua xut atxiki Guingamp-eko jokolarieri. Herria

Bigarren egin dute Peio Dourisboure eta Pierre Noble **angeluarrek** (5 oren 9 mn), eta hirugarren Jerôme Ollivon **angeluarrak** eta René Usandisaga lekondarrak (5 oren 54 mn). Herria

Hauek xanpaina atera dute lehen bi denboraldietan baina **Angeluarrek** nagusitasuna atxiki dute bururaino. Herria

Futbolean: **Angeluarrek** galdu dute Arcachonen 2/3ko markarekin. Herria

Partida zaila zen beraz **angeluarrentzat** sei mailaren ezberdintasuna baitzen bi taldeen artean, eta bestalde, batzu ofizioko jokolariak eta bertzeak ez. Herria

---

angeluar[2] 1 *izond/iz* angeluari dagokiona.

Horrek esan nahi du satelite horien abiadura **angeluarra** puntu finko horrenaren berdina izaten dela. Berria - Gaiak

Kono bakar bat beteko duen irudi bat sortzeko, minutu erdi inguruko angelua eratu behar du objektu batek begian; minutua, neurri **angeluarrean**, gradu baten hirurogeirena da; minutu erdia, 180 m-ra dagoen 2,5 cm-ko objektu bati dagokion angelua da. Irene Aldasoro

2 ***abiadura angeluar***

Horrek esan nahi du satelite horien **abiadura angeluarra** puntu finko horrenaren berdina izaten dela. Berria - Gaiak

3 ***azelerazio angeluar*** *(corpusean ez dago; ETCn **78** agerraldi)*

Buruaren **azelerazio angeluarra** hautematen duten hartzaileak hiru hodi erdizirkularren anpuluen barnean daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

Masen ordez, inertziamomentuak ditugu; indarren ordez, indar-pareak, eta, posizio, abiadura eta azelerazioen ordez, posizio-abiadura eta **azelerazio angeluarrak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konduktu erdizirkularrak, eta sakulu eta utrikulua **azelerazio angeluar** eta linealaren informazioa jaso, hurrenez hurren, eta NSZ-era bidaltzen dute nerbio bestibularraren bidez. ETC-entziklopedia

Bigarren deribatuak zilindroaren zentroaren **azelerazio angeluarrarekin** duen erlazio ematen du. ETC-entziklopedia

Propietate honek autobide- edo trenbide-diseinuan trantsizio-kurba moduan erabilgarria izatea eragiten du, aipatutako kurbak abiadura konstantean doan ibilgailu orok **azelerazio angeluar** konstantea izango baitu. ETC-entziklopedia

Higidura zirkularra denez, azelerazio tangentzialaren eta **azelerazio angeluarraren** arteko erlazioa ezaguna da. ETC-entziklopedia

4 ***bereizmen angeluar*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Simulazioari ekin baino lehen, beste parametro batzuk zehaztu behar dira: hexagonoen tamaina, izpien gehienezko islapen kopurua eta izpien arteko **bereizmen angeluarra**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sareko teleskopioak elkarlanean jartzeari esker 20 mikroarku-segundoko **bereizmen angeluarra** lortu zen, historian lehenengo aldiz zulo beltz supermasibo bateko gertaeren mugaren behatzeko beharrezkoa izan zen bereizmena hain zuzen. ETC-entziklopedia

Kalkulatu haren **bereizmen angeluarra** argi ikusgairako (hartu 550 nm-ko uhin-luzera). ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***diametro angeluar*** *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Diametro angeluarra, zeruko gorputz baten ekuatoreko diametroaren itxurazko dimentsioa da, angelu bezala adieraziz eta begiralea bere ertzean dagoela suposatuz. ETC-entziklopedia

Lehen aipatu dugun bezala, Lurretik ikusita, Ilargiaren eta Eguzkiaren **diametro angeluarrak** oso antzekoak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***distantzia angeluar*** *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Matematikan eta astronomian, **distantzia angeluarra** bi punturen arteko distantzia da, puntu horietatik kanpo dagoen beste puntu batetik neurtua. ETC-entziklopedia

Astrolabioa, funtsean, bi objekturen arteko **distantzia angeluarra** neurtzeko tresna bat zen, eta, horrenbestez, zeruko gorputz baten goitasuna kalkulatzeko erabil zitekeen. ETC-literatura, saiakera

Ekuatorea erabilita, erraza daukagu latitudea definitzea: latitudea da Lurraren ekuatorera dagoen **distantzia angeluarra**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurreko puntu jakin bat kokatzeko, latitudea (**distantzia angeluarra** ekuatoretik, ipar-hego norabidean) eta longitudea (**distantzia angeluarra** erreferentziako meridianotik, ekialde-mendebalde norabidean) zehaztu behar dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Traza horiei zirkulu nagusi minimo deritze, eta zirkulu nagusi maximoetan zeharreko **distantzia angeluarrak** graduatzeko erabiltzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ekuatoretik Lurraren azaleko puntu batera, iparralderantz edo hegoalderantz, dagoen **distantzia angeluarra**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Duela zenbait urte astronomoek ikusi zuten, oso urrutiko quasar baten distira aztertuz, maximo jakin batzuen arteko **distantzia angeluarra** urtero 0,2 ms handitzen zela. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *momentu angeluar* *(corpusean ez dago; ETCn **579** agerraldi)*

Momentu angeluarra edo momentu zinetikoa objektu batek duen biraketa kantitatea da. ETC-entziklopedia

Simetria hutsaren ondorioa: materia (gero energiara orokortu bazen ere), momentua, **momentu angeluarra** edo karga elektrikoa kontserbatu egiten dira. ETC-literatura, saiakera

Zirkuluan higitzen den objektu batek, berriz, "**momentu angeluarra**" deritzon propietatea du. ETC-literatura, saiakera

Adibidez, bi masen arteko elkarrekintzan indar-momenturik sortzen ez denez, sistema isolatuetan **momentu angeluarra** kontserbatu egiten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, bi elektroi horiek **momentu angeluar** intrintsekoaren orientazio -hau da, spin- ezberdina izan behar dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dirac-ek orobat lortu zuen hidrogenoaren "egitura fina" kalkulatzea, hots, beren **momentu angeluar** totalari dagokionez baino desberdin ez diren egoeren arteko energia-alde txiki-txikiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Era berean, objektu simetriko bat bere simetria-ardatzaren (edo horren paraleloa den beste ardatz baten) inguruan w abiadura angeluarrean biraka ari bada, obj ektuaren L **momentu angeluarra** era honetan definitzea ere bada erabilgarria: ETC-zientzia, zuzenbidea

Zer **momentu angeluar**, L, du elektroiak orbitan? ETC-zientzia, zuzenbidea

Spina oinarrizko partikulen berezko **momentu angeluarra** da eta momentu magnetikoa ematen die spindun partikulei. ETC-zientzia, zuzenbidea

Solido zurrunaren dinamika **Momentu angeluarra** beti agertuz erabat fina, abiadura angeluarraz dugu baztertu ezina. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

angeluberdin *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)* **1** *izon* irudi geometrikoez mintzatuz, aldeen arteko angeluak berdinak dituena.

Alde guztiak berdinak (aldeberdina) eta angelu guztiak berdinak (**angeluberdina**) dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horiez gain, hizkera orokorreko testuetan /angeluzuzen/, /**angeluberdin**/ eta /angeluzorrotz/ izenondoak erabiltzen dira sarri, eta egokiak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Triangelu **angeluberdin** bakarra triangelu aldeberdina da. Laukizuzenak -karratua barne- lauki **angeluberdin** bakarrak dira. ETC-entziklopedia

2 *poligono angeluberdin* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Euklidear geometrian, **poligono angeluberdina** angelu guztiak berdinak dituen poligonoa da. Aldeak ere berdinak baditu, poligono erregularra ere bada. ETC-entziklopedia

---

angelukamuts *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* **1** *izon* irudi triangeluez mintzatuz, angelu bat kamutsa eta beste biak zorrotzak dituena.

Hipotenusaren medianak triangelu angeluzuzen eskalenoa bi triangelutan banatzen du: bata **angelukamutsa** eta bestea angeluzorrotza, kongruenteak ez baina baliokideak direnak. ETC-entziklopedia

2 *hiruki angelukamuts* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hiruki angelukamutsak isoszeleak edo eskalenoak izan daitezke. ETC-entziklopedia

3 *triangelu angelukamuts* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hiruki angelukamutsa, hiruki kamutsa, **triangelu angelukamutsa** edo triangelu kamutsa angelu bat kamutsa (90° baino handiagoa); eta, beraz, beste biak zorrotzak (90° baino txikiagoak) dituen hirukia da. ETC-entziklopedia

---

angelus *iz* katolikoek esaten duten otoitza, Jesukristoren haragitzea ospatzen duena.

Apaiz izateko bidean zegoen garai hartan, eta, halako batean, jokoa eten, eta serio-serio, **angelusa** errezatu zuen. Rafa Egiguren

Berak hamabi-hamabietan bazkaltzen zuen, inoren zain egon gabe, bakarrik; huraxe zuen ohitura, gaztetandik, eta halaxe jarraitzen zuen; gaztetan, aurrena **angelusa** errezatu ohi zuen; orain, ohitura hura galdua zen inguruetan, inork ez zuen egiten, ezta berak ere. Berria - Kultura

Don Frantziskok goizetik emaiten zigun eskola, eta eskola haiek eguerdiko **angelusarekin** akabatzen zituen. Joan Mari Irigoien

Angelusaren kanpaiak eta udaletxekoak isildu zirenean harengana hurreratu nintzen. Edorta Jimenez

Aita, Pierresekin mintzatu zelakoan goizeko mezatik landa, **angelusaren** tenoreko zazpiak, ardurenean erasialdi galanta bildurik ginen. Itxaro Borda

Meza bururatzean **angelusaren** ondotik ikusi dugu zerbait arraro. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **angelusa errezatu** (3)

---

angelutar *izlag/iz* . ik **angeluar**[1].

Raphael Larrieu **angelutarra** jakitun da oso zaila dutela txartela eskuratzeko: [...]. Berria - Kirola

Ez zen batere joko ikusgarria gertatu, eta, gainera, **angelutarrak** galtzen hasi ziren. Berria - Kirola

Angelutarrek hiru jokalariren berragerpenak ukanen dituzte, hots, Marakhovski, Lassalle eta Amsellemenak. Berria - Kirola

Angelutarrek ohiko lehen lerro bera erabili zuen; hots, Filiatrault; Duda, Sedlak; Dostal, Garbocz, Zdrahal. Berria - Kirola

Lehen zatian ongi eutsi zioten markagailuari **angelutarrek**, 0-0 amaitu baitzen. Berria - Kirola

Arreta eza izan zen **angelutarren** hutsunea zati horretan, eta Brestek 0 eta 2ko partziala lortu zuen. Berria - Kirola

---

angeluzorrotz *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* **1** *izond* irudi triangeluez mintzatuz, hiru angeluak zorrotzak dituena.

Gure ustez, horiek eta antzeko beste batzuk ere (angeluberdin, **angeluzorrotz**) erabiltzen diren arren, behe-mailetan erabiltzeko egokiak izanik ere -azalpena ematen baitute hitzean bertan-, guk geuk kultur errodun hitzak hobesten ditugu praktikan (errektangeluarra edo zuzena, ekiangelua, akutangelua), goi-mailarako egokiagoak direlakoan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horiez gain, hizkera orokorreko testuetan /angeluzuzen/, /angeluberdin/ eta /**angeluzorrotz**/ izenondoak erabiltzen dira sarri, eta egokiak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hipotenusaren medianak triangelu angeluzuzen eskalenoa bi triangelutan banatzen du: bata angelukamutsa eta bestea **angeluzorrotza**, kongruenteak ez baina baliokideak direnak. ETC-entziklopedia

2 *hiruki angeluzorrotz* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Hiruki angeluzorrotza, hiruki zorrotza, triangelu angeluzorrotza edo triangelu zorrotza, hiru angeluak zorrotzak (90° baino txikiagoak) dituen hirukia da. ETC-entziklopedia

3 *triangelu angeluzorrotz* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hiruki angeluzorrotza, hiruki zorrotza, **triangelu angeluzorrotza** edo triangelu zorrotza hiru angeluak zorrotzak (90° baino txikiagoak) dituen hirukia da. ETC-entziklopedia

---

angeluzuzen 1 *izond* triangeluez mintzatuz, angelu bat zuzena duena; laukiez mintzatuz, lau angeluak zuzenak dituena.

Besteak hamabost-hogei zentimetroko luze-zabaleko plaka **angeluzuzenak** ziren, karratuago batzuk, laukizuzenago besteak. Iñaki Iñurrieta

Etxearen neurriko sala ñimiñoa zen: telebista aparatu bat, bideoa azpian zuena, besaulki bat, zur merkeko mahai tiki **angeluzuzena**, funtzionala oso, eta bi aulki, halaberekoak. Aingeru Epaltza

Haren kuartzozko eraztun beltza daramat nik, duela hogei urtetik hain zuzen ere: **angeluzuzen** urri batean landua da eta bitxi txiki baten distira ageri du erdian. Joxan Elosegi

2 *hiruki angeluzuzen* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Triangelu angeluzuzena, triangelu zuzena, **hiruki angeluzuzena** edo hiruki zuzena hiru angeluetako bat zuzena duen hiruki triangelua da, hau da, hiru angeluetako bat 90°-koa edo /2 radianekoa duena. ETC-entziklopedia

Era berean norbaitek **hiruki angeluzuzen** askoren neurketaren bidez lortuko lukeen ezagutza, ezen aldeok euren artean erlazio ezagun hori dutela, ez litzateke hartuko asebetegarritzat. ETC-literatura, saiakera

3 *triangelu angeluzuzen*

Triangelu angeluzuzen berezi samar baten itxura zuen terrazak: angelu zuzenaren bi aldeak, arrakalaren gainekoa eta garagardotegiko erakusleihoari zegokiona, lerrozuzenak ziren; hipotenusa, berriz, Senaren ibilbideari ezin hobeki egokitua, kurboa zen. Jon Muñoz

4 Hori zutik jartzerakoan Pitagorasen **triangelu angeluzuzenak** duen proportzioaren araberako inklinazioa emango zaio, hau da, luzera bost partetan banatuko da, eta horietako hiru parte emango zaizkio koklearen buruaren altuerari. Santiago Iruretagoiena

Gelakideak, astakirten galantak, ez zuten zeregin hobeagorik aurkitzen, noski, beren habailak -arestian aipaturiko nerbioez eginak- nire zirkuluetarantz keinatu baino, irrika eta trufaka, irakasleak bizkarra ematen zigunean, Pitagorasen teoremako **triangelu angeluzuzena** marrazteko arbelean. Eskarne Mujika

---

angina 1 *iz* admigdalen eta inguruko aldeen hantura.

Konturatu zen kafesnea bero zegoela, eta Matiasek ezin zuen gauza berorik hartu, beroak eztarria lehertzen ziolako -hotzak bezala- eta hiru-lau egun eman behar zituelako gero **anginak** jota, Apustu egunean **anginak** handitu egin zitzaizkion, eta ez zioten utzi mutilari ez arnasik hartzen ezta likidorik irensten ere. Unai Elorriaga

Han gelditu da, itsas mihiaren bestaldean, **angina** gaiztotu bat bezala. Pako Aristi

Medikuak esan zuenez, Jaunarenak kendu beharreko **anginak** zeuzkan, baina ez zituen kendu. Pako Aristi

Medikuak esan zuenez, Jaunarenak kendu beharreko **anginak** zeuzkan, baina ez zituen kendu. Pako Aristi

Konturatu zen kafesnea bero zegoela, eta Matiasek ezin zuen gauza berorik hartu, beroak eztarria lehertzen ziolako -hotzak bezala- eta hiru-lau egun eman behar zituelako gero **anginak** jota, Unai Elorriaga

2 *bularreko angina* hutsegite koronario batek eraginiko sindromea, bularreko min akutuak ezaugarritzen duena.

Bihotzera doan zainen bat erdi itxita dute **bularreko angina** duten pertsonek. Berria - Gaiak

Bularreko angina bihotzeko infartuaren atariko eritasuna izaten da askotan. Berria - Gaiak

Bularreko angina iskemia transitorio bat da; odolak bihotzera heltzeari lagatzen dio, baina aldi batez, gero, berriro ere bere onera etortzen da. Berria - Gaiak

Bularreko angina izan zuen. Berria - Euskal Herria

Joan zen astean erietxera eraman zuten Carod-Rovira **bularreko angina** bat zela eta. Berria - Mundua

Gaixoaldiaren ostean, sendagilearenera joateko usadioa hartu zuen; hark **bularreko angina** sendatua zuela eta ondorenik ez zuela ziurtatu zion arren, zuhurra eta neurritsua izatea gomendatu zion. Patxi Zubizarreta

---

angio *iz* hazienden bazkarako hesitutako belardia.

Harresiak hesitako lurrak oparoak eta ondo landutakoak ziren: baratze ugari zeuden, etxaldeek lupulu-labeak eta aletegiak, eta **angioak** eta ukuiluak zituzten, eta larre berdeetatik behera hamaika errekasto jaisten zen uhinen moduan Anduinerantz. Agustin Otsoa

---

angiogenesi *(orobat **angiogenesis**)* *iz* odol hodien eratze eta garapena.

Tumoreak hazteko behar duen beste mantenugai lortzeari deitzen zaio **angiogenesia**. Berria - Gaiak

"Orain frogatu dugu tumoreen garapenean **angiogenesiak** baino gehiago eragiten duela espazioagatiko borrokak", esan zuten. Berria - Gaiak

Tumoreak **angiogenesis** fenomenoagatik hazten zirela uste zuten lehen zientzialariek. Berria - Gaiak

---

angiogenesis ik **angiogenesi**.

---

angiografia *iz* odol hodien erradiografia.

Moniz, Egas mediku portugesa (Avanca, 1874-Lisboa, 1955) burmuineko lehen **angiografiak** egin zituen (1927). Unai Elorriaga

Eta batek daki zer den **angiografia** bat. Unai Elorriaga

Test berezi batek -fluoreszeina- **angiografiak** - makulako edema kistiko txiki bat agerrarazi zuen, baina horrek ez zezakeen noski ekarri halako gorabeheratxo harrigarririk. Xabier Olarra

---

angiologia *iz* medikuntzaten adarra, odol eta linfa hodiez arduratzen dena.

Donostiako ospitaleko **angiologia** saileko medikua. Berria - Gaiak

Jose Vicente Escribano Donostiako ospitaleko **angiologia** eta hodietako kirurgia saileko medikua da. Berria - Gaiak

---

angioma *iz* tumore onbera, larruazalaren azpian orban gisa agertzen dena.

Bibote mehe eta leuneko gizon txikia zen bata, idun zabaleko alkandora gorriz jantzia; eskuinaldeko masaila ardo koloreko **angioma** batez estalia zuen onkote itxurako morrosko zabal bat bestea, koadrozko alkandora zuri-gorri-berdez jantzia. Juan Luis Zabala

---

angiopatia *iz* medikuntzan, odol hodien eritasuna.

Izan ere, CAA Garuneko **Angiopatia** Amiloidea zuela ohartu ziren, baina, halarik ere odol zirkulazioa errazteko botikak eman zizkioten. Berria - Mundua

---

angiospermo *(corpusean ez dago; ETCn **138** agerraldi) izond/iz* landareez mintzatuz, haziak fruituaren barnean dituena.

Lorearen egitura **angiospermoetan** soilik agertzen da, gimnospermoetan hazi biluzia garatzen baita. Hori da bi talde horien artean dagoen ezberdintasuna. **Angiospermoetan** haziak obulutegian garatzen dira, aurrerago fruitua emango duen organoan. ETC-entziklopedia

Landareen inguruan, mota asko hartu ditzakegu besteak beste, **angiospermoak** 224.000 landare izanda. ETC-entziklopedia

Inguruneko baldintzak muturrekoak direnean, **angiospermoen** hazien garapena eta ugalketa eten egiten da, une eta baldintza onenak etorri arte, indarrak ondo gordetzeko. ETC-entziklopedia

Angiospermoak: fruitua ematen dute; landare eboluzionatuagoak dira, lore konplexu eta ikusgarriagoekin. ETC-entziklopedia

Duela gutxi arte familia bananduta zegoen, Betulaceae (Betula eta Haltz Alnus generoekin) eta Corylaceae (gainerakoekin) familietan, baina **angiospermoetan** egindako azterketa filogenetikoen ondorioz familia berean daudela ondorioztatu zen. ETC-entziklopedia

Eta, kontinente honetara iritsi zenetik igaro diren ia ehun urteetan, ez du funtsik izan hegoaldeko Appalacheetako baso **angiospermo** handiak inbadituko zituen beldurrak. ETC-literatura, saiakera

Mesozoikoko iratze zuhaixkaren eta onddoen oihanetatik eta Tertziarioko zikadofitoen, palmondoen eta **angiospermo** primitiboen basoetatik eroandako hezur nahastura hark bazituen Kretazeoko, Eozenoko eta bestelako animalia espezie ugari, paleontologorik bikainenak urtebetean sailka zitzakeen baino are gehiago. ETC-literatura, saiakera

Egundo "benetako" loreak dituzten **angiospermoak** azaldu gabe, koniferoak, ginkgoak eta cycadaceoak nagusi ziren. ETC-prentsa

Angiospermoen ugaltze-sistemaren urratsak azaltzen dira, irudiak erabilita. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

angiotentsina *(corpusean ez dago; ETCn **75** agerraldi) iz* odol hodiak estuagotzen dituen entzima.

Angiotentsina giltzurruneko zelula justaglomerularrek jariatzen duten polipeptidoetako bakoitza da, odol-presioa erregulatzen duena (I, II eta III angiotentsinak daude). ETC-entziklopedia

Errenina-**angiotentsina** sistema edo errenina-**angiotentsina**-aldosterona sistema presio arteriala eta gorputzeko likidoen oreka erregulatzeaz arduratzen den sistema hormonala da. ETC-entziklopedia

Gaur egun errenina-**angiotentsina**-aldosterona sistemaren gain egiten dira ikerketa-lanik gehienak, aldi berean hipertentsioa eta giltzurrunaren funtzioa kontrolatzen saiatzeko. ETC-prentsa

Glomerulu ondoko zelulen jariatze-pikorrek errenina hormona dute; errenina proteasa bat da, odol-plasmako angiotentsinogenoa ebakitzen du eta I **angiotentsina** sortzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erreninak a-globulina angiotentsinogenoarekin erreakzionatzen du plasman; handik, I **angiotentsina** askatzen da, eta entzimatikoki II **angiotentsina** bihurtzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tratamendurako, besteak beste, beta-blokeatzaileak (labetalola, esmolola), **angiotentsina** entzimaren bihurtzaileen inhibitzaileak (enalaprila) edo kaltzioaren antagonitak (nikardipinoa, hidralazina, mihipeko nifedipinoa) erabil daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Errenina-**Angiotentsina**-Aldosterona ardatzak kontrolatzen ditu eta hiperpotasemiak ere haren jariapena erregulatzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mas hartzailearen deskribapena giza espermatozoideetan: **angiotentsina** 1-7 bidezko aktibazioaren eragina espermatozoideetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Odol-hodiak uzkurtzen dituzten substantziak (endotelinak, **angiotentsina** konbertitzen duen entzima, prostaglandina H2, tromboxano A2) edo odol-hodiak zabaltzen dituzten substantziak (NO, prostaziklina) sortzeko eta jariatzeko gai dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

angira ik **aingira**.

---

angles ik **ingeles**.

---

anglesita *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* berun sulfatoa.

Anglesita PbSO4 formula kimikoa duen mineral berundun eta sufre sulfatoduna da. ETC-entziklopedia

---

anglikanismo *(corpusean ez dago; ETCn **180** agerraldi) iz* Enrike VIII.a ingeles erregeak eratu zuen doktrina protestantea.

Anglikanismoa edo Eliza Anglikanoa kristautasunaren hiru sineste nagusietako bat da. Ingalaterrako Eliza ofiziala 1534an sortu zen, bertako errege Enrike VIII.ak Aita Santuarekin eta Erromako elizaren doktrina, instituzio eta printzipioekiko loturak hautsi zituenean. ETC-entziklopedia

Erlijio inguruko gerrak, Inkisizioa, kalbinisten erroak eta adarrak Euskal Herrian, **anglikanismoa**, liburu trafikoa, Herbehereetako altxamenduak gaztelar mendekotasunetik askatzeko, garaiko armaden osaera askotarikoa, garaiko identitate irizpideak... ETC-prentsa

Ondorioz, protestantismoaren barruan hiru talde desberdindu ziren: luteranismoa, kalbinismoa eta **anglikanismoa**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ingalaterran, **anglikanismoa** estatuko erlijio ofiziala den arren, Erlijioa hautazkoa da eskola publikoetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eredu sozialdemokrata bati atxikirik -nagusi den erlijio presbiterianoa igualitarista da, **anglikanismoa** klasista den bitartean-, oro har, biztanleko gastu publikoa Ingalaterran baino % 16-20 altuagoa da, eta "aberastasunaren ardatzean" (Irlanda, Islandia, Norvegia eta Danimarkak osatzen duten horretan) sartu nahi du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izenburuan paratu zuen galdera horri Osa apaizgaiak ematen zion erantzunak Unamunoren delako bihotzaren arrazoiak, bihotzak ere badituela arrazoiak alegia, gogorarazi dit, baina berak espresuki Newman ingelesa aipatzen du, **anglikanismotik** katolikotasunera bihurtua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikusi dugun adibidean, ez da harritzekoa, atzean, arrazoi erlijiosoak ere egotea: Eskoziako presbiterianismoa Ingalaterrako **anglikanismoa** baino igualitaristagoa baita gizartearen kontzepzioan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anglikano 1 *izond/iz* Enrike VIII.a ingeles erregeak eratu zuen doktrina protestanteari dagokiona; doktrina horren jarraitzailea.

Gene Robinson Estatu Batuetako apezpiku homosexuala New Hampshireko elizbarrutiko buru izendatu zutenetik haserre dira Afrikako gotzain **anglikanoak** . Berria - Gaiak

Buruan zebilkion ezen Sterne bera, apaiz **anglikanoa** izanik, ez zela izango hain zorrotza bere juzguetan. Jon Alonso

Apaiz **anglikanoa** zen eta itsasontzi batean kaperau ibili zen hasiera batean, baina lekukotza faltsua leporatu zioten, eta ihes egin behar izan zuen Ingalaterratik. Juan Martin Elexpuru

Suaren alboan biluzik lo egiten ohituta zeuden eta misionero **anglikanoek** oheak eta mantak ekarri zizkieten. Joseba Sarrionandia

Ingalaterrako Elizaren buru zen, baina **anglikanoen** artetik sortuta eta Bibliaren indar berriz bihotzak epelduta, gero eta ugariagoak ziren puritano zorrotz haiek, Ingalaterrako Elizaren burua gogo txarrez ikusten zutenak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ingles horiek guziek, eta **anglikano** horiek guziek, orain gibelerat egin dutela-ta, zerbaitengatik da. Menane Oxandabaratz

Ratzinger kardinaleak erran du Eliza katolikoa zela bakarrik egiazko Eliza eta bertzek erran nahi baita protestantek, orthodoxek, **anglikanoek** izen hori ez dutela merexi. Herria

2 *Eliza Anglikano*

Haren kargu hartzeak, baina, Gotzain Elizako eta **Eliza Anglikanoko** kide kontserbadoreen haserrea eragin zuen. Berria - Gaiak

Kasuak kasu, apaiz talde batek **eliza anglikanoa** utzi zuen emazteak ordenatzen hasi zirelarik. Berria - Euskal Herria

Liburu hori garai batean **Eliza Anglikanoak** biziki estimatu zuen, eta oraindik ere, nire ustez, adimenaren atseginez eta arimarentzako probetxuz ikasten da. Xabier Olarra

Hobbes, puritanoa espirituz, saiatu zen, erabat lortu gabe, **eliza anglikanoa** gehiegi ez haserretzen. Esteban Antxustegi

3 *erreforma anglikano* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Erreforma anglikanoa edo Ingalaterrako Erreforma Ingalaterran XVI. mendean izandako gertakari multzo bat izan zen, Ingalaterrako Eliza Eliza Katolikoarengandik eta aita santuaren autoritatetik bereizi zuena. ETC-entziklopedia

Mugimendu hau Polonian, Bohemia, Hungaria eta Britaniar irletara iritsi zen (**erreforma anglikanoa**). ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurrak saltzeko askatasuna onartu zen **erreforma anglikanoaren** aldian (1529-1536). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anglikar *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi; orobat **anglikano** ETCn **624** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **anglikano** agertzen da)* *izlag* anglikanismoaren jarraitzailea. ik **anglikano**.

Diskriminazio horien artean zegoen Oxford eta Cambridgeko unibertsitate graduak **anglikarrentzat** soilik izatea. ETC-literatura, saiakera

Ama xhosak eta honen familiak babesturik **anglikarren** misio eskolara joan zen hamasei urte bete arte. ETC-literatura, saiakera

Ez dezagun ahaz, bide batez, biak erlijioz **anglikarrak** zirela eta horrek pentsatzeko eran katoliziamoak ez bezala, ematen duela askatasuna. ETC-prentsa

Aita santuari -eta **Anglikar** eliza buru den- Ingalaterrako erreginari berriz eskatu zieten deusezta dezaten Amerikaren konkista bermatu zuen bula, alegia, 1493an Alexandro VI.ak ezarri zuen Inter Caetera. ETC-prentsa

Anglikar , katoliko eta ortodoxo elizek santu gisa gurtzen dute, bere jai egun liturgikoa urriaren 26a da. ETC-entziklopedia

Nagusiki presbiteriar eta **anglikar** erlijiokoak dira. ETC-entziklopedia

Etniak: sothoak % 99,7; besteak % 0,3. Erlijioa: katolikoak % 43,5; protestanteak % 26; **anglikarrak** eta beste kristau batzuk % 19; besteak % 10. ETC-entziklopedia

Katedral **anglikar** hau hiriko eraikin zaharrena, 1172an eraikia. ETC-entziklopedia

---

anglizismo *iz* ingelesezkoa hitz edo esaldia, beste hizkuntza batzuetan erabiltzen dena.

Irudipena daukat genero indarkeria errotutako adierazpidea dela, nahiz eta **anglizismoa** den. Berria - Euskal Herria

Beste batzuetan "Zapo-latina", "Italianismoak" "Helenismoak", **"Anglizismoak"** "Inge lays and sat", idazlearen asmoaren ildotik, agian neure partetik prozedurak gehixeago nabarmendu ditut. Xabier Olarra

---

anglo 1 *iz* V. eta VI. mendeetan Ingalaterran finkatu zen herri bateko kidea.

Onartutako kantu guztiak, azkenean, **angloak** izan dira. Berria - Kultura

Gizarte-maila nolakoa, konposizioen zenbatekoa halakoa .565; esate baterako, **angloen** legean, konposizioa seiehun sosekoa zen adalingo bat hiltzeagatik, berrehunekoa gizon librea hiltzeagatik, hogeita hamarrekoa jopua hiltzeagatik. Iñaki Iñurrieta

Joycek istorio hauek idaztean agertutako asmoetako bat Dublin munduari ematea zen, baina ez, ordea -berari iruditzen zitzaionez-, Lady Gregory bezalako **anglo** -irlandar aristokraten edo Synge bezalako nekazari erromantiko eta idealisten erara Irlandaren irudi faltsua zabalduz. Irene Aldasoro

2 (izenondo gisa)

Sasiyuppi guztiek hain gogoko dituzten forma **anglo** horietako bat. Unai Iturriaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hantxe ziren denak, hebreerazaleak, yiddishzaleak, idazle **anglo** -juduak. Koro Navarro

Zeukan adinarekin ez Kubakoan, ezta **Anglo** -boerrean ere ezin ibilia izan; 36-39koa geratzen zen, eta, egiten zituen imintzio eta keinadizoekin, alde batean bera bakarrik borrokatu zela pentsatu behar. Joxean Sagaztizabal

Hamazazpigarren mendeko kronologista **anglo** -irlandarra izan zen Ussher artzapezpikuak zioen bezala. Iñaki Mendiguren

Beraz, garai hartako **anglo** -eskandinaviar planteamendua erdibide bat aurkitzeko ahalegina zen, enpresa pribatua eta gizarte-justiziaren interesetan gobernu-arauketa konbinatzeko proba eginez. Iñaki Mendiguren

4 *anglo-amerikar*

Anglo-amerikar kolonietan landako biztanleen beharrak betetzeko hazi ziren hiriak: espainiar kolonietan hirietako beharrak betetzeko hazi zen landako biztanleria. Iñaki Mendiguren

Non daude orain Iraken kontrako gerraren animatzaileak? Non daude Ameriketako Estatu Batuetako belatzak, inbasio **anglo-amerikarra** bozkarioz betetako irakiarrek txalotutako "paseo erraz bat» izango zela iragarri zutenak? Berria - Mundua

5 *anglo-normandiar* *(corpusean ez dago; ETCn **72** agerraldi)*

Anglo-normandiar uharteak edo Kanaleko uharteak Mantxako kanalean dagoen uharte irla taldea da, Normandia eta Ingalaterrako hego-ekialdearen artean, Erresuma Batuko menpe daudenak. ETC-entziklopedia

1113an Henry I.ak babestuta Dabidek lurrak eskuratu zituen tropa **anglo-normandiarrak** erabiliz. ETC-entziklopedia

Inoiz aipatu dudala uste dut, Geografia klase bat: **Anglo-normandiar** uharteak mapan adierazterik bai? ETC-prentsa

Hala nola **Anglo-normandiar** uharteak, Gibraltar, Birjina uharteak, eta Kaiman uharteak. ETC-prentsa

Aitak arbasoen gaztelua, **anglo-normandiar** arkitekturaren adibide paregabea, mantendu izana ez zen lagungarria ere erdiko klaseko familia irlandarretatik zetozen eskolakideen artean. ETC-prentsa

Hala ere, aurtengo oporraldiarekin zalantzetan eta nola moldatu ezinik bazabiltza, Atlantikoa proposatu nahi dizut: **Anglo-normandiar** uharteak. ETC-prentsa

Azken kolpea Anjouko Enrike II.a erregeak eman zuen Irlandaren konkista **anglo-normandiarra** hastean, aita santuaren bedeinkazioarekin, hamabigarren mendearen erdian. ETC-literatura, saiakera

Ikus, bestela, XIII. mendeko **anglo-normandiarren** gailentze militarra Irlandan, baina irlandar kulturaren nagusitzea konkistatzaileen artean ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *anglo-saxoi* ik **anglosaxoi**.

Faustino Sarmiento, inoiz espainolik onenean espainolei buruz gaizkiena mintzatu izan den idazle eta politikari argentinarraren arrazismoa indigenen eta beltzen aurkakoa da eta arraza **anglo-saxoi** "nahastugabearen" (USAren) gurtzailea. Joxe Azurmendi

Lehen Mundu Gerraren biharamunean espiritu historizista eta erlatibista nagusi zen Alemanian, horretan ikus omen baitzitekeen pentsamendu alemanaren eta mendebaleko besteen artean diferentzia; pentsamendu hori hedatuz doa, eta Bigarren Mundu Gerra osterako, mundu **anglo-saxoi** osoaz jabetua omen da; badirudi guri mendearen azkenetan heldu zaizkigula beste batzuen mende hasierak... Joxe Azurmendi

7 *anglo-saxoiera*

Anglo-**saxoieraz** ... "oina" literatura aurreko formak... iraun zuen (inglesera modernoan...), baita haren plura... "oinak",... (ing. modernoan...) bihurtu da. Isabel Arrigain

---

angloamerikar *(orobat **anglo-amerikar**) izond* ingelesei eta amerikarrei batera dagokiena.

Mundu osoko irudien merkatua lau agentzion esku daude: CBS eta CNN estatubatuarrak, Visnews britainiarra eta WTN **angloamerikarra**. Txema Ramirez de la Piscina

Esaterako, Egiptoko Al Wafd egunkariaren iritziz, "aliantza **angloamerikarraren** gainbeheraren hasiera" da. Berria - Mundua

Anglo-amerikar kolonietan landako biztanleen beharrak betetzeko hazi ziren hiriak: espainiar kolonietan hirietako beharrak betetzeko hazi zen landako biztanleria. Iñaki Mendiguren

Ipar Amerikaz jabetzeagatik **anglo-amerikar** muga-gizonen eta lehiakideen arteko topaketa hauek erakusten zuten muga-gizonak ez ezik, amerikar herri osoa zegoela prest, salbuespen gisa eta aldi baterako, diziplina militarraren mende jartzeko. Iñaki Mendiguren

K.o. 1895ean, Britainiar Guayana eta Venezuela arteko mugaren kokapenari buruzko **anglo-amerikar** eztabaidaren bati lotuta, amerikar estatu-idazkari zen Richard Olneyk adierazpen ospetsua egin zuen, haren izenari oraindik baduen hilezkortasuna eman ziona. daude Ameriketako Estatu Batuetako belatzak, inbasio **anglo-amerikarra** bozkarioz betetako irakiarrek txalotutako "paseo erraz bat" izango zela iragarri zutenak? Iñaki Mendiguren

---

angloaustraliar *izond* Inglaterrari eta Australiari batera dagokiena.

Dozenaka galaxia txiki ultrakonpaktoak deitzen zaien horietakoak atzeman dituzte Siding Springo (Hego Gales Berria, Australia) Behatoki **angloaustraliarreko** astronomoek, Fornax konstelaziotik gertu. Berria - Gaiak

---

anglofilo *izond* Inglaterrako kultura eta tradizioei miresmena dioen pertsona.

Denak abertzaleak, denak **anglofilo** amorratuak. Edorta Jimenez

---

anglofono 1 *izond/iz* ingeles hiztuna.

Horren baitan filosofia analitikoa dugu, batez ere giro **anglofonoetan** eragin handikoa. Askoren artean

Esamoldea, Euskadi Gazteko irratsaio baten izena dena, EBCIC hizkiak **anglofono** batek ahoskatuko lukeen moduan irakurtzen da, ingeles doinua gorabehera. Iñaki Arranz

2 *herrialde anglofono* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Ondoren, Markos Untzeta **herrialde anglofonoetan** hezitako musikariaren txanda izango da. ETC-prentsa

"Aprobetxatu" esan nahi du hemezortzi urte bete aurretik gutxienez pare bat aldiz **herrialde anglofono** batean izan zarela. ETC-prentsa

Herrialde anglofonoetan egiten diren kongresuetan ez da kontuan izaten itzultzaileen beharra, baina itzulpena beharrezkoa da gure arloan antolatzen diren nazioarteko kongresu gehienetan. ETC-prentsa

Mende hasieran oro har ospe ona zuen **herrialde anglofonoetan**, baina gehienbat azken hamarkadan haren irudia aldatu egin da. ETC-prentsa

Herrialde anglofonoetan edo Espainian ez bezala, aipatu arauok ez dira testu bakar batean bildu eta kodifikatu, eta zein bere aldetik aipatzen dira. ETC-literatura, saiakera

Herrialde anglofonoetan eta Eskandinavian, ongizate-estatuek presio latza pairatu dute faktore horien ondorioz, eta eskaera-kudeaketa ia erabat baztertu da estrategia gisa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Frantzian azken hamarkadetan berraurkitu dute Bastiat; denbora luzez bere lanek garrantzi handiagoa izan dute **herrialde anglofonoetan**. ETC-entziklopedia

Hospizioa (ingelesez "hospice") zainketa aringarriak medikuntza paliatiboak eskaintzen duen baliabide bat da, gaur egun bereziki **herrialde anglofonoetan** zabalduta dagoena. ETC-entziklopedia

Zainketa aringarriekin bat egiten duen filosofia edo baliabide multzoa, gaur egun bereziki **herrialde anglofonoetan** zabalduta dagoena. ETC-entziklopedia

---

anglomania *iz* ingelesaren edo ingelesen aldeko miresmen gehiegizkoa.

Mendebaldeko "liberalismo" kontinentalari -hemeretzigarren mendeko hainbeste iraultza, gehienak eragotziak, sortarazi zituenari- historialari kontinental batzuek **anglomania** deitu zioten. Iñaki Mendiguren

---

anglonormandiar *iz* Inglaterran kokatu zen normadiar herriko kidea.

Anglonormandiarra arautua zen, hotza, patxadatsua, mugimenduetan zein hitzetan urria, eta bazirudien berba eta imintziorik ez zuela egiten, tarte erregularrez ziharduen malguki baten eraginez baizik. Karlos Zabala

---

anglosaxoi 1 *iz* Bretainia Handia inbaditu zuten herri germaniarretako pertsona. ik**anglo-saxoi**.

Mendearen amaiera arte, **anglosaxoiak** ziren etorkin gehienak. Koro Navarro

Anglosaxoiek Kaukasotik kanporatu nahi dute Errusia, eta horretarako Kaukaso eta oro har Errusia desorekatu behar dituzte. Berria - Mundua

Anglosaxoien artean Erregeak oker egin ziola zioen gizon bati, jasandako laidoa frogatzeko, errege laidotzailearen brontzezko irudi bat makilatzeko aukera ematen zioten, eta gero bizkarra berotzen zioten makila harexekin. Xabier Olarra

Anglosaxoien nagusikeriaren aurka egiten dutela zientzialari frantsesek, italiarrek, espainiarrek, germaniarrek. Hasier Etxeberria

Behar izanez gero, berriro ere beste edozein herrialde zapaltzeko prest egongo zela esatea, zuri **anglosaxoi** protestanteak gero eta aberatsagoak izateko, beltzak Harlem-en usteldu diren artean? Berria - Mundua

2 *izond* herri horiei dagokiena.

Kezkatuta dago Europan aurrera egin duten Erosteko Eskaintza Publikoekin: "Herrialde **anglosaxoietan** dauzkaten babes neurrien modukoak nahi ditut". Berria - Ekonomia

Ez dut masokismoraino erematen autokritika maskulinoa, eta ez diot kasurik egiten (ideia berri bihirik aitzinatu gabe) erresuma **anglosaxoietan** egiten den kritika sexistari,

baina Aurelia Arkotxarekin ele egitean, Borrowek euskaldun emazteez egiten zuen deskripzioa gogora heldu zitzaidan: [...]. Aurelia Arkotxa

Herrialde industrializatuen atzeraldiko testuinguru batean hasi zen, mundu **anglo-saxoian** aurrena, Europa kontinentean eta Japonian ondoren. Koro Navarro

Arriskua dago Europako Konstituzioaren bidez tradizio europarrean Frantzian edo Alemanian bereziki erroturik dagoen kapitalismo sozialki kezkatua bazterrean utzi eta kapitalismo sozialki arduragabea garatzeko, eredu **anglosaxoiari** segituta. Berria - Harian

Prozedura **anglosaxoiaren** doi bat gureganatzeak ez nau trabatzen, baina horrela egiten bada, osoko orekarik bilatu gabe, ukaldika, zer pentsatu ematen dit. Berria - Euskal Herria

Frantzia modelo **anglosaxoiaren** eredua ari da bereganatzen, erranez Herbehereetakoa dela. Berria - Harian

Pentsamendu hori hedatuz doa, eta Bigarren Mundu Gerra osterako, mundu **anglo-saxoi** osoaz jabetua omen da. Joxe Azurmendi

Kantu **anglosaxoiak** jotzen zituzten, gazteleratuta. Jon Maia

Cid-en poemak ba omen du zapore horretatik; nik neuk, garbi sumatu dut Eneidaren ahapaldietan ("Seme, ikas enegandik, adorea eta benazko irmotasuna; besterengandik, arrakasta"), Maldon-en balada **anglosaxoian** ("Ene herriak lantzaz eta ezpata zaharrez ordainduko du zerga"). Juan Garzia

Mendearen bukaeran, emigrazio **anglosaxoia** ahitu zenean, Mediterraneoko herrialdeetara zabaldu zen fenomeno hau (Italia, Espainia, Portugal, Grezia), eta baita eslabiar herrietara ere (Austro-Hungariar Inperioa, Polonia, Errusia). Koro Navarro

Filosofia analitiko **anglosaxoiak** konputagailuen adimen artifizialaren eta gizakiaren adimen naturala ere aztertu ditu. Askoren artean

Liburu errazak, eta, gainera, **anglosaxoiak**. Anjel Lertxundi

Helmuga horretara iritsita, sistema postidealisten jarrerak elkartuz doaz, bai filosofia **anglosaxoian**, bai filosofia kontinentalean. Filosofiaren pedagogo da Warburton mundu **anglosaxoian**. Askoren artean

Testuinguru **anglosaxoian** batez ere, Biologiaren Filosofiaren ekoizpenik handiena eboluzioaren inguruan sortutako arazoei eskaini zaie. Askoren artean

Aipagarriak dira horien artetik Composition Studies direlakoak, hau da, idazle eta irakurleen prestakuntzarako ikasketak, kultura **anglosaxoian** hain garrantzitsuak direnak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Amerindiarra prestu eta zintzoa izan zen bere garaian baina, bukaeran, zibilizazio moderno **anglosaxoiari** bidea uztera behartuta zen izatez edo berez. Askoren artean

Kapitalismoaren bi tradizio bereizi behar dira: tradizio **anglosaxoiko** kapitalismoa batetik, eta renanoa edo kontinentala bestetik. Iñaki Heras

1987an, Brasilek banku-zorrak ordaintzeko epea luzatzen zuela adierazi zuenean, banku **anglosaxoi** handien metatze-ahaleginak areagotu egin ziren. Koro Navarro

3 *herrialde anglosaxoi*

Kezkatuta dago Europan aurrera egin duten Erosteko Eskaintza Publikoekin: "**Herrialde anglosaxoietan** dauzkaten babes neurrien modukoak nahi ditut». Berria - Ekonomia

4 *mundu anglosaxoi*

Tutoretzek tradizio luzea dute **mundu anglosaxoian** eta gure inguruko unibertsitate pribatu batzuetan ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Filosofiaren pedagogo da Warburton **mundu anglosaxoian**. Askoren artean

5 *zuzenbide anglosaxoi* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Alderdi juridikorik funtsezkoenean, **Zuzenbide anglosaxoiak** (Common law) kaleko erabiltzaile guztiak berdinak zirela defendatu zuen. ETC-entziklopedia

Leasing kontratuak jatorria **zuzenbide anglosaxoian** du eta Ameriketako Estatu Batuetan izan du hazkunde progresiboa azken urteetan. ETC-entziklopedia

"Impeachment" (euskaraz "auzibidea") **zuzenbide anglosaxoiaren** figura da, zeinaren bidez goi kargodun publiko bat auzipetu daitekeen. ETC-entziklopedia

Beste alde batetik, Txinak erabakitako merkatu sistema sozialistak inbertsioei bermea ematen dien legeria bat garatu du, **zuzenbide anglosaxoiaren** "equity" printzipioan oinarrituz. ETC-entziklopedia

CC lizentziek jabetza publikoaren aukera gutxi gorabehera onartzen dute, hori bai, **zuzenbide anglosaxoiaren** kategorien barnean. ETC-prentsa

Zuzenbide anglosaxoia ez dela Espainia edo Euskal Herrikoa bezalakoa azaltzen du, han Konstituzio idatzirik ez daukaten bitartean, hemen 1978koa dugulako oinarri, eta "bertan eskualde bat bereizteko aukera ez da aurreikusi ere". ETC-prentsa

Bai **Zuzenbide anglosaxoiko** sistemak, bai Zuzenbide erromanistikokoak, aspaldi konturatu ziren arauetako hizkeraren kaskartasunaz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Irizpide horrek **zuzenbide anglosaxoian** hedapen zabala duen spending power (gastu-ahalmena) printzipioa hartu zuen oinarritzat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Britainia Handiko **zuzenbide anglosaxoiak** legez kanpo utzi zuen blasfemia Erresuma Batuan Henry VIII. erregeak hamaseigarren mendean Ingalaterrako Eliza sortu zuenetik, eta egun ere indarrean darrai lege horrek. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anglosaxoiera *(orobat **anglo-saxoiera**)* *iz* anglosaxoiak mintzatzen ziren germaniar hizkuntza.

Aipatu fenomeno hau eskuarki gertatu ohi da: esaterako, germanikoa kontinentetik Britaniar uharteetara sartu zen unetik beretik banakatu zen bere bilakaera; alde batetik, alemaniar dialektoak sortu ziren, eta bestetik, **anglosaxoiera** -zeinetatik ingelesa sortu baita-. Isabel Arrigain

Orobat, antzekoa gertatu zen **anglosaxoieraz**: [...]. Isabel Arrigain

Anglo-saxoieraz [...] "oina" literatura aurreko formak [...] iraun zuen. Isabel Arrigain

Anglosaxoierazko kodize zahar batean larogeita hemeretzi igarkizun oso poetiko agertzen dira, eta 48 zenbakiaz ezagutzen dena hau da: [...]. Patziku Perurena

Germanikoa, esaterako, Ulfilas-eko gotikoan agertzen da (zeinaren jarraipena ez baitugu ezagutzen); gero germanikoa antzinako goi alemanezko idazkietan berragertuko zaigu, eta geroago **anglosaxoierazko**, normandierazko eta abarrezko idazkietan. Isabel Arrigain

Alde batetik, alemaniar dialektoak sortu ziren, eta bestetik, **anglosaxoiera** -zeinetatik ingelesa sortu baita-. Isabel Arrigain

Orobat, antzekoa gertatu zen **anglosaxoieraz**: [...]. Isabel Arrigain

---

anglosaxoniar *izond/iz* anglosaxoia.

Idazle **anglosaxoniarretan** oso errotua dago oroitzapen liburuak idazteko ohitura. Xabier Mendiguren Elizegi

Egun, Boli Kostan, Iraken edo bestelako herrialdeetan aritzen diren enpresa frankofono eta **anglosaxoniarren** aitzindariak izan dira Denard eta bere taldea. Berria - Mundua

Literatura **anglosaxoniarraren** ikonoetako bat da oraindik, baina The power and the glory (Boterea eta gloria) edo Human Factor (Giza Faktorea) lanetan orri bikainak badira ere, ez da bere ekoizpena, hutsik hartuta, Graham Greeneren alderdi erakargarriena. Berria - Kultura

Kultura anitzen errealitatea plazaratzeko tresna da, baina kultura **anglosaxoniarra** gailendu da beste guztien gainetik. Berria - Gaiak

Akaso Europaren beste ikuspegia, mundu guztiak duela 50 urte ezagutzen duena, Europa liberalago eta supermerkatu handi baten ideia **anglosaxoniarra**?. Berria - Harian

---

anglosaxonista *iz* anglosaxoniar hizkuntzetan aditua den hizkuntzalaria.

Baina haiek oro "hizkuntza komun batekoak" izatea (flandriar, aleman, daniar, suediarrak; baina baita ingelesak ere: zergatik bereizi germanistak eta **anglosaxonistak**, kontua hizkuntza baldin bada?), Unamuno-ri interesatzen zaion apailaketa da. Joxe Azurmendi

---

angolar *izond/ iz* Angolakoa, Angolari dagokiona; Angolako biztanlea.

Tresna ugari erabili dituzte munduko musikarako topaleku Bilbo aukeratu duten musikari arabar, bizkaitar, **angolar**, espainiar eta estatubatuarrek; Bizkaiko hiriburuko Bolueta auzunean elkartzen dira astero, "entseatzeko eta munduko musikak emanikoa euskal musikara nola ekarri hausnartzeko. Berria - Kultura

Beren lehen diska plazaratu dute, diska hunentzat beste sei musikariren laguntza ukan dutelarik, tartean Bilbon bizi den Bernabe Moussayou **angolarra**. Herria

Beren lehen diska plazaratu dute, diska hunentzat beste sei musikariren laguntza ukan dutelarik, tartean Bilbon bizi den Bernabe Moussayou **angolarra**. Herria

Saharaz hegoaldekoak dira denak: senegaldarrak, maliarrak, nigeriarrak eta **angolarrak**. Berria - Mundua

Zeze Gamboa zuzendari **angolarraren** filma, bestalde, Sundance zinema independentearen jaialdiaren saria lortuta datorkigu, fikzio istorio baten bidez Angolako gerra osteko bizimodu latza islatzen du, gordin eta egiatan. Berria - Kultura

---

angora *iz* Turkiako egungo Ankarako -lehenagoko Angorako- katu, ahuntz, edo untxien ilearekin eginiko ehunaren izena.

Emiliok emakumearen muxika-hanketan baino ezin du pentsatu, gabardina kenduko dionean jantzirik ote daukan **angorazko** jertse grisa, ezagutu zuenean bezala. Eider Rodriguez

Urte haietan Parisinin erositako **angorazko** xal more bat eramaten zuen beti, eta hartan biltzen zen. Fernando Rey

Liburuak ez ezik azalpenak ere biltzen genituen eta azalpen guztiak bat bihurtu, aukerak hutsera murriztuz, gaurko idazle oro barregarri utziz, paduretan itotzen ari den **angorako** katua bailitzan. Unai Elorriaga

---

angstrom *iz* luzera unitatea, 10^{-10} metroren baliokidea dena eta, besteak beste, argi erradiazioen uhin luzera neurtzeko erabiltzen dena (Å).

Hezurrean, kolagenoak egiten du erretxinarena, eta mineral-kristalek beirazko zuntzena.Analogia ez da oso egokia agian, hezurretako kristalak 200 **angstrom** inguru baitira luzeran (zentimetro baten bi milioiren), eta beira-zuntzeko zuntzak, berriz, milimetro batzuetakoak izan ohi dira. Irene Aldasoro

---

angula 1 *iz* txitxardina, aingiraren kumea.

Gure **angulak**, kokotxak, txipiroiak, eskuragarritasunaren aldetik, kabiarraren pareko bilakatzen ari dira, eta plater baten funtsa edo oinarria izan daitezke, baina ez plater osoa. Ramon Saizarbitoria

-Eta Orioko bisigua ez da Oriokoa, ezta Aginagako **angulak** ere Aginagakoak. Ramon Saizarbitoria

Gero, kokotxak pil-pilean eta **angulak**. Berria - Kirola

Angulak jatea, edari aukerakoak dasdatzea, eta abar. Patziku Perurena

Hurrengo batean galdetu zidan ea egia zen **angula** artifizialak asmatu zituztelakoa. Koldo Izagirre

Zentral hidroelektrikoak ugaritu ahala, izokina eta **angulak** urritu egin ziren eta gaizkata erabat desagertu. Berria - Gaiak

Azazkal gogorren geruzapean hazi ziren txirlak eta lapak; ileek **angula** itxura hartu zuten; mingain mugikorretik amuarrainak etorri ziren. Pako Aristi

Ehun bat langile dituen enpresa **angularen** merkatuan oso ezagutua da. Herria

Ortzirale aratsaldeko 6.30etan,Baionan, Eusko Ikaskuntzaren egoitzan, Manex Pagolaren hitzaldia **angula** arraintzaz Aturri ibaian. Herria

Zentral hidroelektrikoak ugaritu ahala, izokina eta **angulak** urritu egin ziren eta gaizkata erabat desagertu. Berria - Gaiak

2 ***angula-mangula*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Andereak leiho ertzetik hodei mutur bat gelan sartzen zaiola irudikatu du, ebakuntza baten ondoren kirofanoan erdi lagatako kotoi puskaren antza hartu diona, eta hari xume batetik tira eginda, zehaztasunik gabeko gogoetetan korapilatu da, **angula-mangula** doazen bidezidorretan galtzen, helburura heldu nahi orduko aienatzen zaion barne hizketaldian. ETC-literatura, saiakera

---

angular 1 *izond* anguluarena, anguluari dagokiona.

Koordenatu polar horiek, hain zuzen, ondorengo hauek definituko lituzkete, haren iritzian: zentro batek, begiratzen duen subjektuak, begiratzen den noranzkoa horizontalean eta bertikalean zentro horren arabera kokatzen duten bi koordenatu **angularrek**, eta begiratzen zaion objektutik zentrorainoko distantzia den beste koordenatu batek Josu Zabaleta

2 ***momentu angular*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Beste fluido baten barruan helikoidekatzen diren material fluidoz osaturiko helize askoren iraupen edo jarraipena **momentu angularra** kontserbatzeari zor zaio, marruskaduraren bidezko energia-galerak gogor eginagatik horren aurka. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta gainera ez du sistema bikoitz honen inguruan xehetasunik errazten, fisikaren aldetik bakarrik **momentu angular** deritzon propietateak baino ez luke azalduko aipatutako sistemaren sorrera. ETC-entziklopedia

---

angulero *iz* angulak arrantzatzen dituen pertsona.

Faltan sumatu dituzu "euren odolari txaloka abesten dioten ijitoak, mozkorrak, jonkiak eta maiteminduak bazter batetik bestera, **anguleroak** kriseiluaren argipean koñaka zurrutean, kontainerrak sutan kale eta zubi artean...". Berria - Kultura

Orduko **anguleroek** esango zizueten, nik baino hobeto, lazun haiek **anguleroen** eskuei haginka egiteko kapazak zirela, uretatik salto eginda, amorratuta, zoro, odolez gosetuta Paddy Rekalde

---

angulu ik **angelu**.

---

angurri *iz* landare etzana, hosto eta lore hori handiak eta fruitua meloiaren antzekoa, baina mamia gorria eta haziak beltzak dituena *(Cucumis citrullus);* delako landarearen fruitua.

Gizon bat igeri zebilen haien erdian, oihuka eta dena antolatzen; garaia bezain lodia zen ia, biribil-biribila, **angurri** baten antzekoa. Jose Morales

Irarlanaren aldamenean, olio-pintura belztu batek hormaren erdia betetzen zuen; loreak, fruituak, **angurri** erdibitu bat, basurde baten muturra eta buruz behera zintzilikaturiko ahate bat ikus zitezkeen han. Jose Morales

Errepide probintzialetik gurpil handiko gurdiren bat ibiltzen da astiro, hareaz beteta, eta gurdizaina ahoz gora lo egoten da zama gainean, zilbotea agerian duela eta bizkarra gorituta, edo, pertikan eserita, inausteko artaziekin arrantza egiten du altzoan azpil baten antzera daukan **angurri** erdi batetik. Koldo Biguri

Angurri puska gorri bizi batzuk daude mahai gainean, whisky botilak eta edalontziak. Xabier Paya

Zerrama hark, hondakin-pila batean uxarka ari zela, txito bat irentsi zuen bidenabar, eta gero, horretaz konturatu gabe, **angurri**-azalak jaten jarraitu zuen ezer gertatu ez balitz bezala. Jose Morales

---

angustia *iz* larrimin egoera bizia, larritzat edo arriskugarritzat hartzen den zerbaitek eragina.

Etsipena edo tristura edo egonezina edo **angustia** edo baretasuna edo itxaropena. Ana Urkiza

Tarantulismoa harrapatzen zuen gaixoak tristura izugarria izaten omen zuen: malenkonia, **angustia**, egonezina, heriotzaren hurbiltasuna sumatzen duenaren gogo eroria. J.M. Olaizola "Txiliku"

Itsaso kexatua itxuratzen nuen, Joana ondoan hatsanga igerika, harrian bistan, **angustia**, itotzeko antsia, salbatua izateko premia. Itxaro Borda

Halatan, arteak ez zuen kaosak dakarren **angustia** islatu beste biderik. Anjel Lertxundi

Angustiak kateztatzen nau eta horixe zitzaidan gau hartan gertatu, antsiak hondarrean abandonatu ninduen arte. Itxaro Borda

Angustiak lepotik heldu ninduen une batez, ubeldu egin zitzaizkidan begi-zuloak. Karlos Linazasoro

Angustiaren urka-bilurrak estutu ninduen lehenengo aldiz. Karlos Linazasoro

Behin edo behin, nire esturari eta nire **angustiari** ihes egiteko-edo, amona Sinforosaz oroitu eta elizaren batean sartzen nintzen, baina bisita haietan ere Jainkoaren ausentzia besterik ez nuen neureganatzen. Joan Mari Irigoien

Harritu egin zituen itxuraz oso arrunta zirudien zerbaitengatik nik hain **angustia** handia azaltzeak. *Volksgeist* espainolaren doktrina, krausista bereziki, **angustia** nazional baten espresio bezala ikusten da. Joseba Urteaga

Ohean izorratua zaudenean, han zaude, eguna egunari lotuz; **angustia** larriak igarotzen dituzu, gune beltzak. Herria

Santutasuna, baina **angustia** existentzialaren ondorioz sortutako santutasuna: jainkoaren begiradatik aldenduta dagoena. Berria - Kultura

Angustia ugari mugitzen dituen prozesua da psikoanalisia. Berria - Harian

Batzuetan, existentzialismoaren **angustia**-kutsua darie komunetako idazkiei. Joxerra Garzia

Egia al da -galdetzen zion **angustia** izpi batez- arazo larri batean murgilduta zaudela? Joxemari Iturralde

Kafkak bere bestiarioan animaliak erabili zituen, baina ez fabula gisa, giza **angustia** eta ahultasunen adibide gisa baizik: "Horrela, animaliak pertsonaren antza hartzean, porrotari minbera da". Berria - Kultura

-Baina ez benetan, ezta, Wendy? -galdetu zuen, **angustiaz** beteta. Julen Gabiria

Igizon konplexu bat, arazoz eta **angustiaz** zamatua. kuskizuna zirraragarria zen: inor ez zen bere lekutik mugitzen, inork ez zuen ezer galdetzen -itsuak bakarrik-, inork ez zuen **angustiaz** edo itobeharraz edo izulaborriz negarrik egiten. Xabier Mendiguren Elizegi

---

angustiatu, angustiatu, angustiatzen **1** *da/du* ad angustia sentitu.

Kolpe batean gogoratu zituen betekizun bi horiek, gainera, eta apur bat **angustiatu** zen, arratsaldeko lanak atzeratuko zizkiolako horrek. Unai Elorriaga

Angustiatu zen ez ziolako astirik emango benetan egin nahi zituen gauzak egiteko. Unai Elorriaga

Eta horrek **angustiatu** egiten nau. Unai Elorriaga

Berehala **angustiatzen** naiz berriro, ordea: errazegi imajina dezakedalako Marcos aginduak ematen. Unai Elorriaga

2 (era burutua izenondo gisa)

Pentsamendu espainol nazional eta original baten patriotak ez bide dira Menéndez Pelayo edo Unamuno bezalako kontserbazale **angustiatuak** bakarrik. Joxe Azurmendi

---

angustioso *izond* angustia eragiten duena.

Hasi aurretik, beraz, gauza **angustiosoa** iruditu zitzaion proiektua. Unai Elorriaga

Gripea daukan pertsonaren orrazkera bezain **angustiosoa**. Unai Elorriaga

---

anhauztar *iz* Nafarroa Behereko Anhauzeko pertsona.

Obra huntan partxuer dira ere, bertzeak bertze, Lydia Curutchet garaztarra eta Amaia Riouspeyrous **anhauztarra**, beren boz goxoarekin. Herria

Etchandy **anhauztarra** hirugarren beizik ez da ateratzen % 22,11-rekin (831 boz: lehen itzulian baino gutixago), nahiz UDF-tiarren sustengu osoa zaukan, horietan Gabriel Dermit kontseilari orokor ohiarena. Herria

---

anhidrido **1** *iz* oxigenoaren eta elementu ez metaliko baten konbinazioa.

Horra sulfurozko prezipitatu horia, eta **anhidrido** artseniosoa; artsenikoa, alegia. Juan Garzia

'Ez dugu **anhidrido** sotaniko gehiago agoantatu behar! ' esan zuen Inazitok, bera ere oso beldurtuta zegoen arren. Joseba Sarrionandia

2 irud/hed

'Ez dugu **anhidrido** sotaniko gehiago agoantatu behar!' esan zuen Inazitok, bera ere oso beldurtuta zegoen arren. Joseba Sarrionandia

3 ***anhidrido azetiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Azetolisia datza polenak Erdtmanen likido deritzon nahasketaz tratatzean, alegia, **anhidrido azetiko** (9/10) eta azido sulfurikoz (1/10) eginiko nahasketaz. ETC-zientzia, zuzenbidea

2005eko abenduan onartutako lege antinarkotiko batek Afganistanek erregistroak edo erregulazioak garatzea eskatzen du, **anhidrido azetikoa** arakatzeko, biltegiratzeko eta edukitzeko. ETC-entziklopedia

4 ***anhidrido azido*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Anhidrido azidoa ur molekula bat edo gehiago gehitzean azido hidroxilikoa sortzen duen gaia da. ETC-entziklopedia

5 ***anhidrido fosforiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Beste osagai posible bat burdin sulfatoa, aluminio kloruro eta **anhidrido fosforikoa** dira. ETC-entziklopedia

6 ***anhidrido karboniko*** karbono dioxidoa.

Kometen nukleoak izotz konglomeratu batez (ura, amoniakoa, anhidrido **karbonikoa)** eta karbonozko eta silikatozko hondar solido batzuez osatuta zeudela. Berria - Gaiak

Hala molekula bat anhidrido **karboniko** eguratsera itzuli zen. Juan Garzia

Alegia, [gizona] ez da ahalegindu elikatzeko, janzteko, berotzeko eta bizitza modernoaren beste hamaika beharrizanetarako ezinbesteko zaion karbonoa aireko anhidriko **karbonikotik** erdiesten. Juan Garzia

7 ***anhidrido maleiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Anhidrido maleiko C2H2 (CO) 2O formula duen konposatu organikoa da, azido maleikoaren anhidridoa dena. Poliester erretxinak egiteko erabiltzen da. Egoera naturalean koloregabea edo zuria da, usain garratzekoa. ETC-entziklopedia

8 ***anhidrido sulfuroso*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

1994ko urriaren 21ean, goizeko 8: 05ean, lantegia martxan jartzen ari zirela, SO2 (**anhidrido sulfurosoa**) isuri zen atmosferara Rontealden. ETC-prentsa

Sulfitoaren - **anhidrido sulfurosoa** edo enologian gehiago erabiltzen da: metabisulfito potasikoa- kontuaren haria hartuz, esan daiteke enologiak asko zor diola SO<->2-ren erabilerari. ETC-prentsa

Edo partikula kutsatzaile bat; adibidez, **anhidrido sulfurosoa**. ETC-prentsa

Anhidrido sulfurosoak kalte egiten dio osasunari; beraz, ez da ezinbestekoa ardogintzan, eta hura erabiltzea salbuespena izan behar du. ETC-prentsa

Bakterio batzuek konposatu inorganikoen oxidazioa erabiltzen dute energia-iturri gisa (**anhidrido sulfuroso** edo konposatu ferrosoak, adibidez) eta kimiosintesia egiten dutenez kimioautotrofo deitzen zaie. ETC-entziklopedia

Hau, laba koladen gaineko geruzatik irteten direlako da. Ur lurrin kopuru handia dute eta azido klorhidriko eta **anhidrido sulfuroso** zati txikiagoak. ETC-entziklopedia

---

anhidrita *(corpusean ez dago; ETCn **62** agerraldi) iz* kaltzio sulfato anhidroz osaturiko minerala.

Anhidrita CaSO4 formula kimikoa duen mea mineral anhidro kaltziodun eta sulfatoduna da. ETC-entziklopedia

Kasu hauetan ura itsasokoa bada, ur hori gainsaturatu egiten da gatza (batez ere halita, igeltsua eta **anhidrita**) metatuz. ETC-entziklopedia

Goiak esan zuenez, **anhidrita** agertu da Arlabango tunelean, eta horrek behartuko ditu azterketa sakon bat egin, eta tunelaren hormak berriro ere babestera. ETC-prentsa

2007ko azaroan Arlabaneko tunelean **anhidrita** zainak topatu zituzten, eta horrek lanak atzeratzea behartu zuen, tunela estalki berezi batekin babestu behar izan baitute **anhidritak** kalterik eragin ez dezan . ETC-prentsa

Albertiako tunelean, esaterako, **anhidritak** eta igeltsu harriak topatu dituzte. ETC-prentsa

Goiak azaldu zuenez, **anhidrita** izeneko materiala azaldu da Isuzkitzako (Arlaban) tunelean; material horrek, hidratazioarekin, %60 handitzen du bolumena eta horrek tunelean lurrak eragiten duen presioa asko areagotzen du. ETC-prentsa

Zementu hau porlan zementuko klinkerra, % 55eko kantitatea baino gutxiagoko puzolarriak eta igeltsu dihidratatua (**anhidrita**) elkarrekin ehoz lortzen den produktua da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anhidro *(corpusean ez dago; ETCn **115** agerraldi) iz* gai konposatuez mintzatuz, urik ez duena.

Pentsatu nuen balio hori azido nukleiko funtsez **anhidroari** zegokiona, eta, dentsitatea erabiliz, kalkulatu nuen polinukleotido kateen kopurua unitateko hiru zela zehazki. ETC-literatura, saiakera

Konpresio zuzeneko eszipiente gisa gehien erabiltzen diren gaien artean, hauexek ditugu: atomizazio bidez lehortutako laktosa monohidratatua, laktosa **anhidroa**, fosfato dikaltziko **anhidroa** edo dihidratatua, manitola, sorbitola, zelulosa mikrokristalinoa eta almidoi eraldatuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aukeretako bat hau da: kanpoan zeuden gainazal **anhidroek** (buztinek, piritek edo kristal basaltikoek) polimerizazio-erreakzio aurrebiotikoen euskarri gisa jokatu zuten. ETC-zientzia, zuzenbidea

Disolbagarritasun-koefizientea, berriz, beste faktore hauen baitan dago, besteak beste: molekula ionizagarria den ala ez, gatzik erabili den ala ez (eta zein motatako gatza den), molekula **anhidroa** edo hidratatua den (forma **anhidroak** disolbagarriagoak izaten dira)... ETC-zientzia, zuzenbidea

Triazilglizeridoak substantzia erreduzitu eta **anhidroak** direnez, energia metabolikoaren oso gordailu kontzentratuak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egoera naturalean arroka hauek % 79,07 kaltzio sulfato **anhidroz** eta % 20,93 urez sortuta daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

Anhidroak izatea, hau da, urarik ez edukitzea: jakien ura frijitzean lurruntzen eta kanporatzen da, zeinek oliotan hidrolisi-erreakzioei mesede egiten dien. ETC-zientzia, zuzenbidea

Anhidro forman ekoitz daiteke (urik gabe), ur berotan kristalizatuz. ETC-entziklopedia

Fumarola lehorrak (edo **anhidroak**): labak, fusio egoeran botatzen dituenak dira, kraterretik gertu. ETC-entziklopedia

Zenbait plakak oso disolbagarriak dira uretan, horrela laginak **anhidroak** egon behar dira (urik gabe). ETC-entziklopedia

Azkenik, N2O5 oso erreaktiboa eta termikoki ezegonkorra da, azido nitrikoaren **anhidroa** da. Lehergaiak prestatzeko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

---

anhilina ik **anilina**.

---

anhitz ik **anitz**.

---

anhoa ik **anoa**.

---

anikilazio *iz* zerbaiten edo norbaiten deuseztatze erabatekoa.

Holokaustoa, ez du ematen juduen sudur makoagatik izan denik, suposatu zaizkien euren kualitate (h. d., bizio sortzetiko) moralengatik baizik, horiek nazien begietan euren **anikilazioa** justifikatzen zuten. Joxe Azurmendi

Botila hutsak, kartoiak, latak, plastiko erraustuak, arratoi eta katu larru lehortuak, zabor muino eta lautadak, zabor unibertsoa ia eta gu, iheslariek eta mozkorrek besterik ez duten trebeziarekin goaz arineketan, **anikilazio** atomikoaren ondorengoa ematen duen paisaia honetan zehar. Joseba Sarrionandia

---

anikonismo *iz* izaki jainkozkoen irudiak edo kidekoenak saihesteko jarduna.

Mendebaldeko Kristandadeak izandako Erreforma protestantean, **anikonismoa** ez zen izan finkatzea lortu zuen amets judaiko bakarra. Iñaki Mendiguren

Hunkitu gabeko judu mugigaitzek harrigarriro arrakastatsua zen kristautasunari buruz agertzen zuten "destaina sakon egonarritsu" hori ez zen kristauentzat hain gogaikarria gertatuko, kristautasunak berak ez balu monoteismoaren eta **anikonismoaren** judu-ondarearekiko leialtasun teoriko zintzoa konbertitu helenikoen politeismo eta idolatriari egindako amore-emate praktikoekin konbinatu izan. Iñaki Mendiguren

Kristautasunak, nahiz eta inoiz ez zuen gaitzetsi judu-Eskrituren agintea -egia esateko, haiek bereekin lotu zituen-, bere konkista errazak, juduen ikuspegitik, bi printzipio judaiko nagusiei, Hamar Aginduetako lehenengoari eta bigarrenari, alegia: monoteismoari eta **anikonismoari** ("irudirik" ez) traizio eginez zertu zituen. Iñaki Mendiguren

---

anil *iz* kolore urdin iluna, *Indigofera anil* edo *Indigofera tinatoria* zuhaixka lekadunetatik ateratzen den gai batetik edo sintetikoki lortzen dena; gai hori bera.

Indigo: **anila** ere deitua, Indiako landare batzuen hostoekin lortzen den kolore urdin oso iluna. Xabier Kintana

Ura **anil** kolorekoa izango da, amak arropa garbitzeko erabiltzen zuen modukoa. Joseba Sarrionandia

Gizon barregarri samar bat zegoen bertan: lepo **anil**-kolorea, kapela kordelduna. Xabier Olarra

Belar, zuhaitz eta urmaeletatik gora zihoazen burbuilok, parkeko hegoaldearen ertzeko etxe garai grisen kontra hanpatzen ziren eta zenitaren **anilean** urtu egiten ziren. Lopez de Arana

Anaiaren ondoan botata, mingain su-gorria ezkutatuta, **anilezko** aurpegia itxita, Seigarrenek lo egin zuen bazkalorduan, hildako batek bezala. Anton Garikano

Balda handi baten ateratzen zituen etxetik arropak eta **anila** harri artean gordeta izaten genuen. Ana Urkiza

Pare bat aldiz bakarrik ikusi ninan, soroan, eta behin **anila** egiten ari zenean. Anton Garikano

Azpiko arropa irakin eta **aniletan** pasatzen zuen, ondorio txarrik gabe sukarra joan zedila errezatuz. Anton Garikano

Esaterako, gustukoa zuen galtzontziloak eta kamisetak garbitu ondoren **anil** uretatik pasatzea, zuria areagotzeko, baina **anilak** ez zuen izan behar ez dirdirarik ez uzteko

bezain motela, ez jantziak urdintzeko bezain indartsua. desagertu egin dira, ordea, Donibane Lohizunetik Hondarribiaraino hain alaiak egiten zituzten **anil** urdinez edo gaztainez margoturiko habetegi konplexu haiek. Bego Montorio

Seigarren basoarekin bat eginda zegoen, zigorra bere ipurdi **anilean** hedatu aurretik. Anton Garikano

Nasen eta etxeen arteko itzalek **anil**-kolorez hautseztatuak ziruditen. Lopez de Arana

Ilunpe more-**anil** zabal batean itsasargi batek kliska egiten zuen. Lopez de Arana

Ura berde-**anila** zen. Lopez de Arana

Haize zakarrak ke grisaren kiribilak eta kotoizko burbuilak behin eta berriro desegiten zituen, zeruaren ganga eskerga urdin-**anilaren** azpian. Lopez de Arana

---

anilina *(orobat **anhilina**) iz* anilaren osagarri den amina ziklikoa, koloratzaile gisa erabiltzen dena.

Lorez eta **anilina**-ildoz apaindutako opil bakoitzean Bazkoko azukrezko bildots bat eta Piztuerako estandarte bat zeuden. Lopez de Arana

"Rouge" deitzen zion ezpain-margoari, "anillina" **anilinari** eta "adelaide" aldeido benzoikoari. Juan Garzia

On Camillok, baldekada bat kare eta brotxa bat hartuta, idatzia ezabatzeari ekin zion, baina **anhilina**-kolorea izan beste hura: alferrik da **anhilina** karez estaltzea, berriro azaltzen delako baita hiru esku emanda ere. Koldo Biguri

---

anilla *iz pl* gimnastika egiteko tresna, lurretik 2,40 metrotara dauden bi uztai edo eraztunek osatua.

Entrenadorearen laguntza behar izan zuen Alexei Nemov-ek **anillei** heltzeko. Unai Elorriaga

Anilletako faboritoa atera zenean, txalo gorriak entzun ziren. Unai Elorriaga

· Lehenengoan, gorputz eskulturala zuten tanga hutsean jantzitako kamareroek, eta **anilla**-froga eta antzeko kiroletara zihardutenen gimnasialari gihartsuak ageri ziren taberna iluneko zoko ezberdinetan jarritako telebista pantailetan. Harkaitz Cano

---

anilladun *izlag* anillak dituena.

Berehala itzuli zen egongelara, **anilladun** album gorri eta txiki batekin. Joxemari Urteaga

---

anima *iz* arima.

Evak ezin izan zuen orduz geroztik Adanen **anima** ukitu. Lourdes Oñederra

Zera esan nahi nian, deabruarekin traturen bat egina duela horrek; hark alegia tximinoari asma dohain hori emango diola eguneroko bizigaia irabazi ahal izateko eta honek hari, munduko etsaiak nahi duen eran, bere **anima** utziko diola. Patxi Ezkiaga

Gauza harrigarria, ohiko tirania zein handia den ez dakienarentzat: lege baketsuek sarraski eta odolera ohitutako **anima** gogortuetatik ikasi behar izan dute epaitzeko modurik humanoena. Juan Martin Elexpuru

Anima sentibera batek ondo egindako legeen kode bati begiratzen dionean, eta besteri gaitz egiteko askatasuna besterik ez duela galdu jabetzen denean, tronua eta bere okupatzailea bedeinkatu egin beharko ditu. Juan Martin Elexpuru

Eguerdirako, **animarik** ez zebilen bidean, eta bakardadean egin genuen aurrera. Bernardo Atxaga

Euskaradun Herriak inoiz **animarik** (jakite noblerik) izanen badu, hain zuzen ere, euskararen tradizio zaharregi horren zainetatik atera beharko du, edo anemiak galduko du. horregatixe dago hau **animaz** beterik; barkamenik gabe hil zen jendearen alderrai ibiltze huts-hutsa, eta ez baitu lortuko barkamen hori inola ere, are gutxiago gutaz baliaturik. Patziku Perurena

Besteek, azkenik, hartzen dute beren **animen** zolagune misteriotsuan, ezkutuko erreinuan, zolagune atseginean, Hirutasun Guztiz Santuaren irudi noblea gorderik dagoen hartan. Joan Mari Lekuona

Arrautza denak ikatzez kurutzetxoa eginda jarri behar dira; eta bat Purgatorioko **animei** opa izaten zaie, **animentzat** eskean dabillenari emanez. bera han egon zen bihotz sendoz, seme bakoitza adoretuz beldurrik izan ez zezaten eta gogotsu gorputz-**animak** eskain zitzaten Jainkoaren Zuzentasunagatik. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **adanen anima** (3); **anima hadi** (3); **anima zaitez** (5)

---

animagarri *izond* animatzen duena.

-Teoria biribila eratu duk kasu honen inguruan -zinez **animagarria**-. Aingeru Epaltza

Iaz amorru biziz amaitu zuen, hainbeste urte diharduen talde batentzat sariak **animagarri** eta motibagarri direlako. Berria - Kirola

"Hau oso **animagarria** da, zeren eta, NBEren ikuspegitik, orokorra ez litzatekeen bake iraunkorra ezin daiteke izan; Ekialde Hurbileko bake prozesuaren atal guztiak kontutan hartu behar dira", gaineratu zuen diplomatikoak. Berria - Mundua

---

animal *izond* animaliei dagokiena.

Jakin beharra dago gizona arima hirukoitz batek piztua dagoela: begetatiboa, **animala** eta arrazionala... Fernando Rey

Burua astintzen zuen zakurrak, batera eta bestera, ezker eta eskuin, pasio **animal** berberaz alde bietara. Harkaitz Cano

---

animale *(ETCn **103** agerraldi; orobat **alimale** ETCn **485** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **alimale** agertzen da) izond* izugarri handia.

Gaizki lo eginik, ikuzi behar zen, baina urera joaiteko, block-eko berogiatik atera behar zen, 100 edo 150 metro egin ilunean eta hotzean, eta barne **animale** batean ikuzi, erdi buluzirik. Marzel Etxehandi

Apezaren hizteria ez zen gelditzen, eta goseagatik, zorriengatik, aire likitsagatik, ontziaren behereko gela zikinean algara **animalea** hazten zen. Itxaro Borda

---

animaleko *(ETCn **159** agerraldi; orobat **alimaleko** ETCn **1.595** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **alimaleko** agertzen da) izlag* izugarri handia.

Alabaina, uharte honetan, mende asko duela, **animaleko** suak pizten ziren harkaitzetan ontzien kraskarazteko eta gero hauen ebasteko. Itxaro Borda

Aliren parean izan balitz, **animaleko** eskumuturreko bat bilduko zuen, ezta? Ramuntxo Etxeberri

-Apez izan naizenetik, "le Sacrement de l'Ordre" beraz "ordrea" ukan diat bainan **animaleko** desordrean bizi naiz! Menane Oxandabaratz

Eta zein da **animaleko** esportzu horren lorpena? Patziku Perurena

Madagaskar, Britainiar Honduras; baina hori egiteko sosak behar ziren ugari, eta ekimenerako gaitasun **animaleko** bat, eta ni, nire familia eta nire lagunak ez ginen ez

batzuon eta ez besteorren jabe. Juan Garzia

---

animalia 1 *iz* sentitzeko eta berez mugitzeko gauza den izaki bizia.

Animaliekin egiten diren proben balioa ezbaian jarri dute zientzialariek. Berria - Gaiak

Animalia begira-begira zuen, etengabe marmarrean eta hortzak erakutsiz, kontu eskean ariko balitzaio bezala. Martin Anso

Oso **animalia** ikusgarria, beix- eta urre-kolorekoa, bere zetazko ileekin eguzki-galdatan dizdizka. Eskarne Mujika

Xeto-k usoen ordez katu bat zeukan orain; gure ustez, katua emakumeen **animalia** zen. Juan Kruz Igerabide

Pertsona eta **animalia** baikara, aldi berean, edo gorputza eta arima, eta Montserratek -Montsek- bi ile haietan laburbildua ikusten baitzuen maite zituèn gizonen osotasuna. Joan Mari Irigoien

Naturan ez duk aurkituko **animalia** eta abererik halako lanetan sartzen denik. Hasier Etxeberria

Hala eta guztiz ere, Juanikok ahal izan zuen guztia egin zuen erreskatatu zuten arrantzaleek **animalia** hil ez zezaten. Iban Zaldua

Ororen aurretik gizakia, Aristotelesek berak zioen bezala, **animalia** politikoa da, ez da izaki ekonomikoa, izaki soziala baizik. Iñaki Heras

Animalia disekatuak ere bazeuden. Jose Morales

Bat-batean, dendaren kanpoaldean **animalia** edo gizakiren bat zegoela ohartu zen. Jokin Urain

2 *iz* adimenik gabeko animalia.

Gizakia nahiz **animalia** izan, ezein izaki bizidunek ez ditu jakin behar bere heriotzaren eguna eta ordua. Jose Morales

Zalduna, **animalia** bezala biluzik, oihuka ari zaio zeruari. Anjel Lertxundi

Pertsona eta **animalia** baikara, aldi berean, edo gorputza eta arima, eta Montserratek -Montsek- bi ile haietan laburbildua ikusten baitzuen maite zituèn gizonen osotasuna. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horregatik, pentsa bazeneza ahalmen hori gabeko eta **animali** izaera bakarrean geldituziko gizabanako bat, halakoa galdurik legoke eta berehala hilko litzateke. Xabier Kintana

XVI. mendean, Bennassar-ek dioenez 1977, 493 or., ehun urte lehenago edo ehun urte geroago bezala, energia berberen mende zegoen industria-ekoizpena: giza motorra, **animalia**-motorra, haizea, ura eta egurra. Koro Navarro

Aurpegi zimeldu txiki hark, gorputz biluzia kokotseraino estaltzen zion atorra zuri hark, baina haren sukar hotz hark, haur edo **animalia** keinuz luzarazten zutela, izaki hain babesgabea bihurtzen zuten, hain ahula, non hiltzen ikustea bera baino handiagoa baitzen sentiarazten zuen errukia. Josu Zabaleta

Gogaitu egiten nau **animalia**-portaeraren aztarnak nigan atzemateak. Ramon Saizarbitoria

Esan diat bere giza atributuak ezkerrean jartzeko; **animali** atributuak eskuinean. Anton Garikano

4 *animali erreinu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Beraz, guk mendebaldarrok, plazer eta zerbitzu-mota asko lortzen dugu ongi hezitako zaldi, txakur edo belatzagandik, eta turkiarrek heziketa bidez landutako izaera duen pertsonagandik lortzen dute askoz ere irabazi handiagoa, giza izaerak gainerako **animali erreinuaren** gain duen nagusitasun eta gailentasun handiak ematen duena". ETC-literatura, saiakera

5 *animalia espezie*

Egungo autopista-gune garrantzitsu baten inguruan geratu delarik, parke zoologikoak berak iragan denboretako **animalia espezie** desagertu bateko alea dirudi. Edorta Jimenez

Bestalde, jakina da **animalia espezie** zenbaitek mimetismorako ahalmena dutela, eta pertsona batzuek ere badute gaitasun hori. Ramon Saizarbitoria

Nahitaezkoa da **animalia espezie** asko orduantxe iraungi zedin eta ez zezan, ugalduz, ondorengorik izan ahal. Xabier Amuriza

6 *animalia etxekotu*

Benetako animaliez ari gara, jakina, ez ia gure hurko edo senide bihurtu ditugun **animalia etxekotu** eta etxe-barrukoez; horiek gu bezalaxe dira ondoezten, gaixotzen, ergeltzen, deprimitzen eta "hiltzen". Iñaki Segurola

7 *animalia jatorriko produktu* *(corpusean ez dago; ETCn 23 agerraldi)*

Kaltzioaren iturri onena esnekiak dira, adibidez, eta **animalia-jatorriko produktuak** burdinaren iturri ezin hobea dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

(EEE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, gizakiak jateko diren **animalia-jatorriko produktuen** kontrol ofizialak antolatzeko arau espezifikoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azken hori **animalia-jatorriko produktuetan** soilik topatzen da; hori dela eta, begetarianoentzat osagarri egokia da. ETC-entziklopedia

Koipe aseak arrainean ez ezik, gainontzeko **animalia jatorriko produktuetan** ere aurkitzen dira: esnekietan, haragian eta arrautzetan. ETC-prentsa

Animalia jatorriko produktuak giza kontsumorako bideratuak daudela ikusirik, beraiekin egiten dugun guztiak azken produktuan eragina izango du. ETC-prentsa

Garrantzitsua izango da prestatzeko modua: barazkiak nahi adina erabili (porrua, azenarioa, patata zatiak, kalabaza, tipula, baratxuria...) eta **animalia jatorriko produktuak** ekidin edo oso kopuru txikitan hartu (txorizoa, odolkia...). ETC-prentsa

Animalia jatorriko produktu guztien antzera, proteina ugari ditu, 19 g/100 gramoko, eta, zuria denez, koipe kopuru urria du 0, 64 g/100 gramoko. ETC-prentsa

Animalia jatorriko produktuak modu txikiagoan, baina dietan sartu behar dira, ez bada barazkijale muturrekoa, noski?, gaineratu du.>>Otorduak prestatzean kontuan hartzeko hainbat aholku eman ditu Perezek ere. ETC-prentsa

Horretarako tresna gisara, beganismoa sustatzen du mugimenduak: kide antiespezistek ez dute kontsumitzen **animalia jatorriko produkturik**, ez elikadurarako, ez eta beste ezertarako ere. ETC-prentsa

Osagai transgenikorik duen pentsurik ez diete ematen, ezta **animalia jatorriko produkturik** ere. ETC-prentsa

8 *animalia-koipe* *(corpusean ez dago; ETCn 16 agerraldi)*

Animalia-koipeak: animalia-jatorriko koipe hauek, esaterako, gurina, txerri-gantza, behiaren giltzurrun-gantza eta bilgorra, sukaldaritza anglosaxoian erabiltzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edonola ere, prioien kasuan jakin behar da abere irinak izan ziren edo txekorrentzako esne maternizatua egiteko eratorritako **animalia koipe** edo proteina bat erabiltzea izan zen gaitzaren sortzaile. ETC-prentsa

Kolore ezberdinak tonu ezberdinetako lur edo mineralak nahastuz lortzen ziren, **animalia koipearekin** nahastuta eta noizbait beste elementu organikoren bat gehituta, intsektuak normalean. ETC-prentsa

Hala ere, oraindik askok dute arrautza beren odoleko kolesterol-maila altuaren erantzule bakartzat, **animalia-koipeetan** aberatsak diren beste elikagai guztiei ere -hestebeteei edo gaztei, esaterako- erreparatu eta bizimodu aktiboari ekin ordez. ETC-prentsa

Esnekirik ez, arrautzarik ez, **animalia koiperik** duen produkturik ez... ETC-prentsa

Gaur egun, aski ezberdinak dira koipe-bereizgailuak (jatetxe, autozerbitzu, sukalde handi, hotel, kanpin eta abarretan behar-beharrezkoak diren **animalia-koipeak** eta landare-olioak bereiztekoak) eta hidrokarburo-bereizgailuak (garaje, tailer, automobil-garbitegi eta abarretan jartzen direnak). ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, sukalde-olio birziklatuak eta **animalia-koipeak** ere usatzen dira biodiesela egiteko. ETC-literatura, saiakera

Landare koipe hidrogenatuak (trans koipeak) 1960ko eta 1970eko hamarkadetan sortu ziren, **animalia-koipeak** ordezteko asmoz. ETC-entziklopedia

9 *animalia rol joko* *(corpusean ez dago; ETCn 6 agerraldi)*

Animalia rol joko rol joko mota bat da, non kideetako batek, gutxienez, animalia baten papera egiten duen. Askotan jokamolde hau psikodrama egiteko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

10 *animalia-trakzio* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Adibide bat jartzearren, 100 urtetan baino ez, musika entzuteko harrizko diskoekin hasi ginen -gailu erreproduzitzaileak behar zituzten, **animalia-trakzioari** esker

funtzionatzen zuten eta bizpahiru abesti baino ez zituzten-. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 *animalia zauritu*

Umezurtz-etxera etorri eta Geethak espetxera amarengana itzuli nahi zuen, basamortuan taldetik bereizi den **animalia** zauritua lagunengana saiatzen den bezala. Gotzon Garate

Estropozo egin dugu kaxa artean, eta lurrera erori gara bi **animalia** zauritu bezala. Javi Cillero

12 *animalia-zelula*

Bazen talde bat **animalia-zelulak** erabiltzen hasia zena poliomielitisaren birusa eta haren ugalketa aztertzeko, baina, salbuespen horrekin, beste inork ez zuen artean aipatu bakterioetatik beste organismo konplexuagoren batera aldatzeko konturik. Juan Garzia

13 *animalien askapen* *(corpusean ez dago; ETCn **108** agerraldi)*

Animalien askapena edo "animalien eskubideak" pentsamendu eta jarrerak animaliak indarkeriarik gabe eta aske bizitzea aldarrikatzen du. ETC-entziklopedia

ALAk (**Animalien Askapenerako** Alternatiba) eta Animalientzako Eskubideak taldeek deitu duten elkarretaratzean parte hartuko du. ETC-prentsa

Askekintza **animalien askapenerako** elkarteak janari begetarianoa duen postu bat jarriko du lehen aldiz Kilometroen ospakizuna dela-eta. ETC-prentsa

Animalien Askapen Fronteko kide izatea eta "ekintza zuzena" erabiltzea egotzita atzeman dituzte. ETC-prentsa

Animalien askapena dute elkarteok helburu. ETC-prentsa

Animalien askapena aldarrikatzen dugu, kapitalismoaren gehiegikeriak salatzen ditugu, baina haragia nahi dugu egunero bazkaltzeko, eta merke, gainera. ETC-prentsa

Helburu bat? **Animalien askapen** osoa. ETC-prentsa

Indartzen ari da urteotan **animalien askapenaren** aldeko mugimendua: ingurumari horretan ulertu behar da Nor Euskal Herriko Antiespezista taldearen eraketa. ETC-prentsa

Mugimenduaren erronka nagusia lanean jarraitzea da, **animalien askapenaren** alde: jarriko dizkiguten oztopoak gainditzea: errepresioari aurre egitea. ETC-prentsa

Kamera bilakatu du **animalien askapenaren** aldeko bere lanerako tresna. ETC-prentsa

Toki bat izan du gizakiz bertzeko **animalien askapena** helburu duen mugimendu politikoari buruzko gogoetak, Lizarran egin berri duten neska gazteen topaketan. ETC-prentsa

Peter Singerrek, 1975eko lan ospetsuan, **animalien askapenaren** kontzeptua proposatu zuen, orain gurean bili-bolo dabilena. ETC-zientzia, zuzenbidea

14 *animalien bezatze* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Alde batetik, arestian esan bezala, inguruan eragiten duen aldaketa da; eta, beste batetik, **animalien bezatzea**, animaliek giza joerak berezkoak egiten baitituzte. ETC-literatura, saiakera

15 *animalien erreinu*

Belarriak soinu-garaiera balioesteko duen ahalmenak ere ez du parekorik **animalien erreinuan**, eta, horregatik, gizakiak dira animalia guztietan musikalenak. Irene Aldasoro

Zoologia: **Animalien erreinuaren** zientza eta historia, barne hartzen duena haren erregea, Etxeko Eulia (Musca maledicta), alegia. Xabier Olarra

Orduantxe eratu zen biziaren kategoria berria, horren aurretik errealitatea sailkatzeko mineralen, landareen eta **animalien erreinuak** bereizten baitziren. Askoren artean

" **Animalien erreinuan** begiratu besterik ez dugu egin behar, gure errealitatean ditugun txiroen pareko animaliak daudela ikusteko», egileen arabera. Berria - Kultura

16 *animalien eskubide*

Oraindik orain, Alemanian Konstituzioa aldatu dute, **animalien eskubideak** onartuak izan daitezen. Gotzon Garate

Bai, ordea, **animalien eskubideak** gizakion eskubideen gainetik jartzearen kontra. Joxerra Garzia

Londresek **animalien eskubideak** babesten dituztenen kontra egin du. Berria - Gaiak

Bilbon 16 urte daramatzate **animalien eskubideen** alde borrokan. Berria - Euskal Herria

Abortua, heriotza duina izateko eskubidea, ingeniaritza genetikoa, ingurumeneko gatazkak, **animalien eskubideak** eta beste horrenbeste gai polemikori buruzko hausnarketa etikoek osatzen dute esparru hori. Askoren artean

17 *etxe animalia*

Nolanahi ere, Alemanian **etxe animaliak** dituzten pertsonei erne ibiltzeko eskatu diete. Berria - Gaiak

18 *etxeko animalia*

Aire librean hazten diren hegaztiak eta **etxeko animaliak** txertatzeko aukera eman diete hala gura izan duten hazleei.2004. urtean egin zien estatuei Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) hegazti gripearen aurkako planak atontzen hasteko deia. Berria - Gaiak

Baina Europan alkoholean urtero gastatzen denaren % 10 baino gutxiago, edo Estatu Batuetan **etxeko animaliak** elikatzeko behar denaren % 50 baino gutxiago. Pello Salaburu

Herbehereetan **etxeko animaliak** eta etxaldeetan kanpoan hazten dituztenak txertatzeko asmoa dute. Berria - Gaiak

19 *konpainia animalia* *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Konpainia-animalia edo maskota-animaliak etxebizitzetan jolasgarri edukitzen diren animaliak dira. ETC-entziklopedia

Egun, **konpainia-animalia** gisa eta erabiltzen da eta gastronomian estimatua da bere haragia, Peru, Bolivia, Ekuador eta Kolonbian batez ere. ETC-entziklopedia

Baina gaur berba egin nahi dut arruntenaz, ohikoenaz, eta arazo bilakatu den horretaz: txakurrak **konpainia animalia** gisa. ETC-prentsa

Gaineratzen duenez, aldez aurretik gehien begiratzen dena animalien gaineko arauak dira, txakurra edo beste **konpainia-animaliaren** bat eroaten duenarendako. ETC-prentsa

Konpainia animalien kasuan, azpimarratu beharra dago benetan izen hori txakurrek eta katuek merezi dutela, bataren zein bestearen historia genealogikoan zehar naturan txoko ekologikoa galdu zutelako (esan liteke gizakiok galarazi diegula). ETC-prentsa

20 *konpainiako animalia* lagun egiteko animalia.

Onartzen dinagu olagarroa **konpainiako animalia** bezala. Harkaitz Cano

Konpainiako animaliarik ezin zuelako eduki ziegan. Jokin Urain

Han geratu zen pianoa ere, animalia barroko hura, Osaba Tomen etxolako sagua kontatuz gero itzaletan abandonatzen genuen bigarren **konpainiako animalia**. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)**
>
> **animalia bat** (42); **animalia baten** (24); **animalia batzuk** (13); **animalia da** (9); **animalia espezie** (20); **animalia eta landare** (14); **animalia guztiak** (16); **animalia guztiek** (10); **animalia guztien** (11); **animalia horiek** (15); **animalia hura** (9); **animalia mota** (9); **animalia txiki** (9); **beste animalia** (38); **landare eta animalia** (9); **zen animalia** (11); **zuen animalia** (12)
>
> **animaliak bezala** (10)
>
> **animaliaren bat** (14)

---

animaliakeria *iz* portaera edo ekintza gaitzesgarria.

Gogorrena ez da nik filmean horrelako **animaliakeriak** erakutsi izana, gogorrena da jendeak bene-benetan egiten dituela. Berria - Kultura

-Ez ziok inporta, **animaliakeria** bat duk hik egin nahi duan hori. Koro Navarro

---

animaliatasun *(ETCn **58** agerraldi; orobat **animaltasun** ETCn **35** agerraldi) iz* animalia izatearen nolakotasuna. ik **animaltasun**.

Eta orduan zer egin zuen?: laguna bilatu, ohe-barruraino karriatu eta harekin larrutan egin, ohearen erruz galdu berria zuen **animaliatasunari** ez erabat uko egiteagatik, **animaliatasun** haren oroiminez eta galminez (eta bietako bat lau hanken gainean jarrita joko zuten segurutik, **animaliatasunaren** galmin horrek eskuak atzera hanka bihurtzea ekartzen baitu, bi hanka besterik ez dituztenak ere lau hankan jarriaz). Iñaki Segurola

Berau azalduko dut: gauza baten errealitatea era akasdunaz hautematen duenak hartatik zati bat hartzen du, baina bestea ez, esaterako, "gizakia" kontzeptuan **animaliatasunari** dagozkionak hartuta, arrazoimenari dagozkionak hartzen ez dituenak egiten duen bezala. Xabier Kintana

---

animaliategi *iz* animaliak gordetzeko tokia.

Biologia molekularreko eraikina izatekoan, sotoan, **animaliategi** handi bat aurreikusita zegoen. Juan Garzia

---

animalismo *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi, horietatik **13** azken sei urteetan) iz* animalien eskubideen alde egiten duen mugimendua. ik **antiespezismo**.

Beraien errail bakarreko bizitzak giza aldakortasunaren ukapena den **animalismorantz** atzera egitera behartu ditu. ETC-literatura, saiakera

Beren burua ontzeko "**animalismo**" hiper-xentxiblea asmatu duten gizakumeei entzungor eginik, amakumeok elkar maitatzeko eta elkar hiltzeko daukagun grazia atera nahi dut argitara. ETC-literatura, saiakera

Baina egia da, ingurumen etikaren arabera, **animalismoa** izan daitekeela gure espezietik haragoko begirune moralerako lehen urratsa. ETC-prentsa

Animalismoen esparruan aktibista den jendeari askotan, kritika moduan, esaten zaizkion gauzek harrituta uzten naute: "Animalien alde ari zara, baina zer gertatzen da Afrikako haurrekin edo emakumearen egoerarekin?". ETC-prentsa

Alde horretatik, gai ugari jorratzen ditu Aristik: amodioa, sexua, lana, tortura, **animalismoa**, kartzelaldiak eta kartzelaldi ostekoak... ETC-prentsa

Edurne Elizondo kazetariak dosier bat idatziko du euskaraz **animalismoaz**, udarako. ETC-prentsa

Animalismoa alor askotara iristen da. ETC-prentsa

Hori guztia onartuta ere, haatik, ez nago eroso gaur egun **animalismoaren** izenean egiten diren hainbat baieztapenekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

animalista *(ETCn **307** agerraldi, horietatik **193** azken sei urteetan)* **1** *iz* animalien eskubideen alde egiten duena. ik **antiespezista**.

Horregatik, ez da harritzekoa giza eskubideen aldeko mobilizazioetan ere **animalistak** ikustea. Berria - Euskal Herria

• **2** *izond* animalistena, animalistei dagokiena.

Zertan datza mugimendu **animalista** deitzen duzuen hori? Berria - Euskal Herria

---

animaltasun *(ETCn **35** agerraldi; orobat **animaliatasun** ETCn **58** agerraldi) iz* animalia izatearen nolakotasuna. ik **animaliatasun**.

Pertsona/animalia anbibalentzia horrek, gizakiaren **animaltasuna** bistan uzten du. Berria - Kultura

Bereziki mito hau, Minotaurorenean nahasten baitira, ausarki, gizakiak duen **animaltasun** eta espiritualtasuna, zezen zuriak eta Pasifaek egin zuten bezala. Berria - Kultura

---

animatu, anima(tu), animatzen da/du *ad* adoretu, zerbait egitera bultzatu.

Anima zaitez", esan nion azkenean. Bernardo Atxaga

Jainkoaren Erkidego horrek soilik eta bakarrik ordezkatzen duen gizarte-espeziea zibilizazioek ordezkaturiko espeziea baino maila goragokoa dela espiritualki, **anima** gaitezke aurrera segitzera gure hasierako ustea -hots, historian zibilizazioen papera dela nagusia eta elizen papera mendekoa- alderantzikatzeko saioan. Iñaki Mendiguren

Tira, **anima** hadi. Anjel Lertxundi

Halakoak esaten nizkion, baina argumentu haiekin nekez **anima** nezakeen inor. Anjel Lertxundi

---

animatzaile **1** *iz* taldeak animatzea edo animazioak antolatzea lanbide duen pertsona.

Marisan Oxotegi **animatzailea** arras kontent zen astea bururatzean. Herria

Taldekoak gustura ibili dira, eta gero puska batean igarkizunka segitu dute (ni harritu egin naiz neure buruarekin, talde **animatzaile** izateko gaitasuna berreskuratu eskuratu dudala ikustean). Patxi Zubizarreta

Idatzi egiten dut batetik, eta bestetik, literatur **animatzailea** naiz. Ana Urkiza

Agertokirantz bultzatu zuen **animatzaileak** gizona, frantses kantuen hitzak kopiatuta zeuzkan liburuxka bat ematen ziola. Jon Muñoz

2 (izenondo gisa)

Ia lankide da nolabait Margaret, eta Stephenek, nahiz eta beraren trebetasuna hain pertsonal eta berezkoa izan, gogoko ditu haren iruzkin txeratsu eta **animatzaileak**. Xabier Olarra

3 ***kirol animatzaile***

Kasik 50 000 euro pagatu beharko ditu bere **kirol animatzailea** kanpo eman duelako. Herria

---

animazaile ik **animatzaile**.

---

animazio *(orobat **animazione** g.er.)* **1** *iz* giro jendetsua, gehienetan bozkariozkoa.

Egun sargorietako **animaziorik** gabe, Urtza bi aldiz isil, bi aldiz bakarti iruditzen zitzaidan, han ibilitako jendearen builak eta zalapartak hutsune bat utzi izan balute bezala, zulo bat uraren baitan. Bernardo Atxaga

Handia da **animazioa**: azken xehetasunak zaintzen ari da Muskildiko jendea oholtzan eta oholtza inguruetan. Anjel Lertxundi

Trikitixa ari zen, **animazio** handia bertan eta aldameneko txosnan. Joxean Sagaztizabal

Zortzietatik aurrera hasi zen **animazioa** dendan, eta, zortzi eta erdiak alderako, eskuak bete lan zeukan Püchl andreak. Anton Garikano

Herriak herrien kontra, kartierrak kartierren kontra... Bazela **animazione** bazterretan! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 *iz* jardueretan parte harrarazteko egindako ekintza multzoa; jarduera horietako bakoitza.

Animazio ainitz izan da, hala nola, roller akrobatikoa eta slalom (sigi saga), eta Akitaniako ligako kideek kontseiluak eman dituzte. Herria

Bat-batean, aurrean doazen taldeak alboetara baztertu eta hutsune bat uzten dute jendaldearen erdian: deabruz mozorrotutako **animazio** -talde bat patinetan irristaka eta suziriak botatzen. Antton Olano

Denen gainetik, zurrunbilo elkor, hiriko **animazio** taldeak aurretik grabatutako 40 Top-eko kantak isurtzen ziren. Itxaro Borda

Karia hortara, zernahi **animazione** eta ikusgarri proposatuak zaizkigu toki desberdin askotan. Herria

3 ***animaziozko*** *izlag* animazio teknika erabiliz egindako ikus-entzunezkoari dagokiona.

Proiektuak fikziozko film luzeak, dokumentalak edo **animaziozkoak** izango dira. Berria - Kultura

Asifa elkartea 1960an sortu zen **animaziozko** zinema sustatzeko asmoarekin, eta Euskal Herriko ordezkaritza 1994an eratu zen. Berria - Kultura

Interesik gabeko maileguak film luzeak, laburrak, telefilmak, pilotuak, dokumentalak eta **animaziozko** filmak laguntzera bideratuko dira. Berria - Kultura

4 ***konputagailu bidezko animazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Konputagailu bidezko animazioa mugimendu-atzemateak gidatzen duenean, benetako interprete batek eszena animatua izateko pertsonaia balitz bezala jokatzen du. ETC-entziklopedia

5 ***ordenagailu bidezko animazio***

Bestalde, U2, Madonna eta Metallicaren proiektuetan ibilitako Ulf Lundgren suediarrak Chain Smoker **ordenagailu bidezko animazio** lana aurkeztuko du Bilbon. Berria - Kultura

---

animaziogile *iz* animazioen egilea.

Animaceko zuzendariak, Isabel Herguera **animaziogile** donostiarrak, horrela deskribatzen du zinemaren bazterretan diharduten irudimenaren artisauak diren **animaziogileen** lana. Berria - Kultura

Mexiko izan da aurten Animac jaialdiko herri gonbidatua eta Lourdes Villagomez **animaziogile** mexikarra etorri da Errealitate ikusezinak izenburupean bildu dituen heriotzarekiko lilura islatzen duten film laburren sorta aurkeztera. Berria - Kultura

---

animazione ik **animazio**.

---

anime *(corpusean ez dago; ETCn **286** agerraldi)* *iz* jatorri japoniarreko animaziozko zinema, grafismo itxuraz ondugabea eta gai futurista-fantastikoak erabiltzen dituena.

Neskak papera presaz urratu eta Leihotikan-en azken diskoa ikusi du lehenbizi, Lur, eta Ghost in the shell Masamune Shirow-ren **anime** pelikula haren atzean. ETC-literatura, saiakera

Arima beltz batek inguratzen duela sentitzen du, shonen generoko manga edo **animeetan** irudikatu ohi duten moduan. ETC-literatura, saiakera

Ilea motz, beltza eta distiragabea; begi handiak, **anime** japoniarretakoak bezala; esne gaingabetua bezain meharra; gazura bezain horixka azala, eta hormako paperen batekoak diruditen arrosa beltzez apaindutako soinekoa soinean. ETC-literatura, saiakera

Manga eta **Anime** zinemari txanda iritsiko zaio igandean, eta guztiek edukiko dute hori ikusteko aukera, kalean izanen baita. ETC-prentsa

Huxleyren _i_Bai mundu berria_/i_ ikaragarri gustatu zitzaidan, baina gehienbat **anime** marrazki bizidunetatik eta zinematik jaso dut mundu hori. ETC-prentsa

Japoniako manga komikitik eratorritako **anime** alorrekoa da Gisaku, gure zinematokietan oraindik estreinatu gabeko lana. ETC-prentsa

Asko entzun nuen estreinatu aurretik Gisaku **anime** estiloko lehen film espainiarrari buruz, eta, egia esan, oso gutxi estreinatu ostean. ETC-prentsa

Yoshiaki Kawajiri **anime** atalaren sortzailetakoa izandakoaren animaziozko filma da hori. ETC-prentsa

Eskaintza zabala prestatu dute: askotariko erakusketak, jolas bitxi eta arraroak, **anime** estilora sortutako marrazki bizidunen erakustaldiak, kirola, hitzaldiak eta beste hainbeste denbora-pasa. ETC-prentsa

Borroka-arteak, landareak hazteko teknikak, **anime** eta mangaren inguruko tailer eta erakusketak izango dira nagusi. ETC-prentsa

Japoniarraren produkzio lana otaku kultura (manga, **anime** eta bideo joko zaleak deskribatzeko berba japoniarra), japoniar arte tradizionala, AEBetako pop kultura zein Surrealismoaren gisako hainbat eraginen fusio gisa ulertu behar dugu. ETC-prentsa

Adizki formalaren ordain ez-formala, hiztegiko forma ere deitu ohi dena, manga, **anime** eta bideo-jokoetan aurkituko du irakurle zaletuak, keigora hurbiltzen denak adizki formalak ikasten hasi beharko duen arren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dragoi Bola **anime** eta mangan oinarrituriko 3. filma da, 1988ko ekainaren 9an estreinatu zen. ETC-entziklopedia

80. hamarkadan informatikak ordezkatu zituen etxetresna eektrikoak eta honekin batera "otaku" kultura iritsi zenean **anime**, manga eta bideo-jokoak nagusitzen hasi ziren. ETC-entziklopedia

XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, nazioarteko ospea du manga komikiak eta horren ondoriozko **anime** marrazki bizidunek eta bideo-jokoek. ETC-entziklopedia

---

animiko **1** *izond* psikikoa.

Batean Bettini, hurrengoan Hushovd, kontua da bi aldiz lapurtu diotela garaipena aurrez aurre Petacchiri eta Milan-San Remori baldintza **animiko** horretan ekitea ere... askotxo. Berria - Kirola

Txabik grabagailua eta soinu mahaia muntatu zituen, baita grabaketa txiki bat egin ere; nahiko eskasa, egia esan, baina puntu **animiko** hartan ez zegoen eskasik inorentzat. Unai Iturriaga

Beheraldia izaten dut, eta lehen ere bai, beheraldi fisikoa baino **animikoa** gehiago, hitz egiteko gogorik gabe geratzen naiz, irakurtzeko ere gogorik gabe. Pako Aristi

Antz hori fisionomikoa ez baina **animikoa** izango zen, hots, misterio bat antzematen zenidan, nonbait: zulatu, argitu, atzeman beharreko sekretua. Xabier Mendiguren Elizegi

Honelako poesia ironikoa, eguneroko ogi **animikoa** dizu, batez ere, sukaldetik ikuilurako animazio beroa edo ekaitzaren kezka hurbiletik bizi izan dituenak. Patziku Perurena

2 arimari dagokiona. ik **arimazko**.

Gorputza, beraz, ez litzateke pentsatzearen kausa, baizik bere baldintza murriztaile soila, eta beraz, sentsuzko bizitza **animikoaren** bultzatzaile gisa bai baina, are gehiago, bizitza huts eta espiritualaren oztopo gisa hartu behar da. Ibon Uribarri

Aurreko lau liburuetan Euskal Herriko "ikusmira **animikoa** " eman zuen Luis Mari Mujikak, eta liburu berrian 1962tik 1999 artean bisitatu dituen Euskal Herritik kanpoko lekuei buruz idatzi du, leku horietan ezagututako jendea inola ere ahaztu gabe. Berria - Kultura

3 ***egoera animiko***

Normalean garaipenek eramaten dute kirolaria **egoera animiko** horretara. Berria - Kirola

Beren **egoera animikoarekin** bat etorriko dira gure dantzak. Berria - Kultura

Oso ondo azaltzen jok Zartateko Handiaren **egoera animikoa**, tentsio handiko narrazio baten barruan... Unai Iturriaga

Pertsona bat ez da tenperatura, argi, egurats, presio eta **egoera animikoaren** nahasketa besterik, hein handi batean. Harkaitz Cano

Kantu hura nire **egoera animikoarekin** guztiz bat zetorrela ohartu nintzen. Juan Luis Zabala

---

animikoki *adlag* psikikoki.

Javier Aguirrek badaki Realaren aurka irabaztea aurrerapauso itzela litzatekeela berriro ere sasoi hasierako giro baikorra berreskuratu ahal izateko: "Taldea ondo ikusten dut **animikoki** zein fisikoki, baina hori zelaian erakutsi behar dute gero Berria - Kirola

---

animismo *iz* naturako gertaerei eta gauzakiei arima egozten dien erlijioa.

Denverko hegazkinean, bederatzi urteko dohain handiko haur normal baten idazlan bat irakurtzen aritua nintzen, hark sortutako maitagarri-ipuin bat, mitoaren zentzu harrigarriz egina: magia, **animismo** eta kosmogoniaz beteriko mundu bat. Xabier Olarra

---

animista *iz/izond* animismoarena; animismoaren jarraitzailea.

Beraien erlijioa **animista** da. Gotzon Garate

1983an hasi zen auzi bat, noiz-eta Soudan horren hegoaldea, gehiena giristino eta **animista**. Herria

Ez da harrigarri, gizarte paganoak **animistak** izaten dira, eta halakoxeak izan ohi dira umeak hainbat urtean. Berria - Kultura

---

animo **1** *iz* adorea, bihotza, kemena.

Guztiz osatu gabe eta **animoz** pattal samar egon arren, Joane Somarriba amaierara arte izan zen atzo brontzea eskuratzeko lehian murgilduta. Berria - Kirola

Edo ez dio **animo** handiegirik ematen hurrena berriz ahalegintzeko ere. Andoni Egaña

Animoaren araberakoak izaten ziren lainoen eiteak, jakina. Harkaitz Cano

Gure **animoen** arabera, batzuetan Iruñera ere joaten ginen. Aitor Arana

Azken berrien ostean, **animo** aldetik nola zaude? Berria - Kirola

Langileek sua piztu dute lanaren hasierari beste **animo** bat emateko: oholezko publizitate erraldoia kokatu dute lurrean. Pako Aristi

Gizalegezko zerak etorri ziren estreina, gaitzari buruzko galdeak eta osatze azkarrerako **animoak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Animoa goratzen laguntzen du danborrak. Berria - Kirola

Zerbait beharko dut **animoari** eusteko. Iñaki Mendiguren

Azken aldian badirudi gainera bere **animoengatik** izango ez balitz, ez zenukeela ezer erosiko. Lourdes Oñederra

• **2** *interj* norbaiti adore emateko erabiltzen den hitza. ik **aupa** ; **aurrera 4**.

Ale, **animo**, ogitartekoa amaitzen baduzu laranja-zukua egingo dizut eta. Iban Zaldua

-Kaka artera atzera, mutiko; **animo**! Joxean Sagaztizabal

-Animo, Sara! Egun onak ikusteko hago oraindik. Joan Mari Irigoien

Baiño bueno, nola beste danak ere berdin zeuden, ba, **animo** Jeronimo! Xabier Mendiguren Elizegi

Animo! Baduzu eta horiek adina dohain eta meritu. Berria - Kultura

Animo, neska, ez ezan beldurrik har. Urtzi Urrutikoeetxea

3 ***animoa eman*** adore eman, adoretu.

Garaipen hura kanporaketakoa izan ez bazen ere, «**animoa eman** digu», adierazi zuen Aitor Senosiainek. Berria - Kirola

Nahiz eta Chrisek uste izan Stephenek ez zuela "irakaste"rik behar, ahalik eta gehien saiatu zen, ereduak eta **animoa emanez**, Stepheni marrazketan laguntzen. Xabier Olarra

Iraganeko kontuak dira horiek jada, eta Sanzoli **animo** berezirik eman beharrik ez dut izan. Berria - Kirola

4 ***animoak eman*** adore eman, adoretu.

Egoera horretan, elkartasuna, babesa eta **animoak** eman dizkieten guztiei eta, oro har, Euskal Herriari eskerrak eman zizkien Batasunak, oharrean. Berria - Euskal Herria

Animoak eman zizkidan Aita Ondarra euskaltzainak eskutitz batekin. Herria

Animoak eman nahi izan dizkit. Anjel Lertxundi

Bioletak irribarretsu begiratu zidan, **animoak** emanez bezala, eta isilik egon ginen biok hodei trinko hura, oso poliki, sabai aldean desegiten zen bitartean. Ramon Saizarbitoria

5 ***animo falta***

-Zin egiten diat, Eneko, Jainkoa Errealaren bazkide egiten saiatuko naizela, hik jokatzen duan bakoitzean **animo faltarik** izan ez dezagun, baina Jainkoa ere burugogorra duk batzuetan eta... Joan Mari Irigoien

Hala ere, La Mongien gora euskaldunon **animo faltarik** ez dute izango. Berria - Kirola

Agirian dio nekazaritza sektorean nagusi den **animo falta** eta ezinegona eragotzi gura duela. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

animo aldaketa (2); **animo aldaketa handiak** (2); **animo aldetik** (9); **animo asko** (3); **animo askorik** (2); **animo egoera** (3); **animo faltarik** (2); **animo handiarekin** (3); **animo hitzak** (2); **animo oihu** (4); **animo oihu artean** (2); **animo oihuak** (9)

bildutakoek animo (2); **txalo eta animo** (3)

animoa eman (2); **animoa ez galtzeko** (2); **galdu animoa** (2)

animoak asko egiten (2); **animoak eman** (12); **animoak emanez** (2); **animoak ematea** (2); **animoak emateko** (12); **animoak ematen** (11); **animoak ematera** (2); **babesa eta animoak** (2); **gazteei animoak** (2)

animorik gabe (3)

animoso dago (6); **animoso ikusi** (2)

animoz ondo (5)

---

animoso **1** *izond* adoretsua, kementsua. ik **animotsu**.

Gizon kontularia, edegia, **animosoa**, irribarrez jantzia, pandero jotea -eta musikea, oro har- munduko atseginik handienetarikoa dauena. Xabier Amuriza

Jarraian, Oskorriren Euskal Herrian Euskaraz kanta ezagunaren bertsio **animoso** bat kantatu zuen Alex Sardui kantariak Berria - Euskal Herria

Gero Nibs dator, ume alai eta **animosoa**, eta bere atzetik Slightly, zuhaitzetatik txirulak moztu eta, horiekin sortutako doinuekin, dantza estasiraino egiten duen umea. Julen Gabiria

2 (adizlagun gisa)

Hala ere, orain dela hogeita hamar urte ditxoso horiek direla eta, lanbrotik argia ikusten genuela uste izan genuen anitzek, **animoso** oldartu baikinen hau mahaia da bezalako esaldi haietan, aipatu bezala. Pello Salaburu

«Bitartean, borrokan jarraituko dugu», zioen **animoso**. Berria - Ekonomia

Ebe eta Kat ere hasi dira dantzan, gero eta **animosoago**, gorputzak doinu gogorrei lagata, futbolinean jokatzen duten, eskaileratan jesarrita dauden komuneko atean

itxaroten duten neska-mutilak begira dituztela jakinda. Sonia Gonzalez

Baina, bazen orduan ere **animoso** portatzen zenik. Pello Zabala

Soin-figura triste eta guzti **animoso** goaz, irribarretsu, arratsaldean senideekin dugun ikusaldira. Jokin Urain

Animoso zebilen hau: ez zion hotza eta giro txarrari beldurrik. Pello Zabala

---

animotsu *(corpusean ez dago; ETCn **37** agerraldi)* **1** *izond* adoretsua, kementsua. ik **animoso**.

Ahotsaren tonua eta abiadura erabat espitosoak zenituen, ordea, lar **animotsuak**. ETC-literatura, saiakera

Erlijio-aldaera batzuk (adibidez, erromatarren paganismoa) onak dira gizarteentzat, zeren sendo eta **animotsu** egiten baitituzte; aitzitik, beste batzuek (adibidez, otzantasun eta xalokeria kristaua) beherakada edo desintegrazioa eragiten dituzte. ETC-literatura, saiakera

Musika ezaguna: Tartalarien babesean Iru? ea ingurutik etorritako jende andana **animotsua** epaitegi parean,pankartaz, txalapartaz eta doinuz.>>Hiru epaileak mahaiburuan agertu direnerako, hamaikak. ETC-prentsa

2 (adizlagun gisa)

Diana, berriz, alai eta **animotsu** sentitzen zen, eta erraz asko kutsatzen zizkidan niri ere sentimendu haiek. ETC-literatura, saiakera

Ahizparekin hitz egin zenuen bart arratsean telefonoz; zure deiaren zain zegoen, eta ama ondo dagoela esan diozu; **animotsu**, eta Eneko ere bai. ETC-literatura, saiakera

Deportatutako kazetaria **animotsu** agertu zen komunikabideen aurrean, baina hauen batez ere britainiarren jokabidea gogor salatu zuen. ETC-prentsa

Joan den urte osoa zerraturik eta obretan pasatu ondoan, antzokia barnetik osoki berreraikitzeko, aurten, fresko eta **animotsu** hasteko gogoarekin dago Baionako antzoki nagusia. ETC-prentsa

Negargura sartzen da, baina **animotsu** egon nahi duzu senideak ez konturatzeko, eta eurek gauza bera egiten dute... gogorra da. ETC-prentsa

Txarrena da kontu honetan ez daudela bakarrik, itxura batean, alai eta **animotsu** batu baitzaio PSE. ETC-prentsa

Garciak gehitu du gaixotasun larri eta kronikoen kasuan oso lagungarria dela, **animotsu** mantentzen laguntzen baitu. ETC-prentsa

ARANTXA **animotsu** azalduko da, beste biei ere umore ona kutsatu nahian. ETC-telebista

ALAZNE. - (malkoak begietan) Ez duk beharrezkoa. Hi sendatzea duk inportanteena... (malkoa lehortu eta irribarre egiten saiatuz) Baina bueno, ospitaletik irten eta **animotsu** baldin bahago... (airean) ETC-telebista

---

animu ik **animo**.

---

anioi *iz* karga elektriko negatiboa duen ioia. ik **katioi**.

Esan nion katioia eta **anioia** bezalakoak ginela, baina Sandrok ez zion grazia berezirik aurkitu konparaketari. Juan Garzia

---

anioniko *(corpusean ez dago; ETCn **86** agerraldi)* *izond* anioiari dagokiona.

Hidrolisi alkalinoaren bidez prestatzen da gelatina **anioniko** hau. ETC-zientzia, zuzenbidea

Karga positibodun IAg-partikulek, adibidez, tentsioaktibo **anionikoak** adsorbatzen dituzte gainazalean, eta, tentsioaktiboen kontzentrazioa CMC baino askoz txikiagoa denean, karga negatiboa izatera igaro daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi erreakzio horietan, haloalkanoari erasotzen dion espeziea oxigeno **anioniko** nukleozalea da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kristal ioniko batean aldi berean posizio kationiko hutsak eta horien baliokideak diren posizio **anioniko** hutsak egoteari Schottkyren akatsa deritzo (17.9 irudia). ETC-zientzia, zuzenbidea

Koloratzaile **anionikoak** (azidoak): zelula-osagai basikoek (karga positibodunek: zitoplasma gehienek, zitoplasma-filamentuek, zelula kanpoko zuntzek) erakartzen dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kasu horretan, fase solidoa ioi-trukerako erretxina da, kationikoa edo **anionikoa**, erabilitako funtzio-taldearen arabera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zelula horien jariakinaren konposaketa glikosilazio-maila altuko proteinak dira, oligosakarido **anionikoetan** aberatsak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kimikarientzat "hidrido" kontzeptuaren funtsa hidrogenoak karga partzial negatibo edo **anionikoa** hartzean datza. ETC-entziklopedia

Glutaminazido hau (bere forma **anionikoan**, noski), neurotransmititzaile garrantzitsua dugu zeinek nerbio sistema zentralean egiten duen bere lana. ETC-entziklopedia

Ioi konplexuaren formula idaztean, lehendabizi metal zentrala jartzen da; gero, jarraian, estekatzaile **anionikoak** eta, ondoren, neutroak. ETC-entziklopedia

Metodo honen bitartez, zati **anionikoak** zati kationikoa korrosioarengandik babesten du. ETC-entziklopedia

---

anis **1** *iz* landare ginbailduna, lore-zuria, gozagarri gisa erabiltzen diren hazi txikiak ematen dituena*(Pimpinella anisum)*; landare horren hazia.

Anisezko erroskila zuriak han eta hemen salgai, bertan irazekitzeko kandelak; eta taloa, txingarra, gazta zaharra; eta ardoa eta sagardoa, ausarki. Txillardegi

Adelak belar-ura prestatu zigun, digestioa hobeto egiteko: erregaliza, **anisa** eta limoi-lorea. Juan Kruz Igerabide

2 *iz* anis haziekin lurrinduriko edari bizia.

Uste dut **anisaren** antzeko zerbait dela! Xabier Paya

Aterantz begira, **anis** kopa erdi hustuak mahaian, eta bizkarra ondo babestuta. Alberto Barandiaren

- Kopatxo bat **anis** nahi duzu, andrea? Lopez de Arana

4.000 lata kontserba, 3.000 latoja xaboi pastilla, 130 kilo urdaiazpiko, 100 botila **anis**. Joseba Sarrionandia

-Ekartzazu, bada, **anisa** -esan zuen Nozdriovek. Jose Morales

Etxekoen esanetik, Rufino apenas zan edalea, nahiz eta **anisa** eta edari gozoak maite zituan. Xabier Amuriza

3 ***anis belar***

Anis-belarraren eta ezkaiaren usaina besterik ez zitzaien falta, eta kilkerren zarata, Maures-en edo Estérel-en zeudelako irudipena izateko. Jon Muñoz

4 ***anis belar txinatar*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Anis-belar txinatarra. ETC-prentsa

5 ***txinatar anis*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Txinatar anis edo txinatar anis-belar ("Illicium verum") ("zortzi adar") Illiciaceae familiako landare-espezie bat da. Haren fruituak anisaren antza du, eta izar-forma du. ETC-entziklopedia

6 ***txinatar anis-belar*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Txinatar anis edo **txinatar anis-belar** ("Illicium verum") ("zortzi adar") Illiciaceae familiako landare-espezie bat da. Haren fruituak anisaren antza du, eta izar-forma du. ETC-entziklopedia

---

anisatu *izond* anisa duena, anis zaporekoa. ik **anisdun**.

Baina neskatxak ukitu ere ez zituen egin, ez zuen jan kabiarrik, ez xerra mehetan ebakitako sardinzarrik, eta ez zuen edan zekale **anisatuzko** pattarrik. Karlos Zabala

---

anisdun *izond* anisa duena.

Gaurkoa **anisduna** zen, eta Pavesek pozarren hartu dit, aspaldi honetan eztarria lakartuta omen dauka eta. Anjel Lertxundi

---

anisoptero *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi) iz* libelulak barne hartzen dituen intsektuen ordena.

Berezitasun zoologiko sakonagoak aparte utzirik, talde bi hauek identifikatzeko ondoko ezaugarria hartzen da kontutan: landareetan kokatzen direnean, **anisopteroek** gorputz alboetarantz jartzen dituzte hegoak parakera horizontalean, eta zigopteroek, ostera, atzerantz oblikuoki bertikalean. Horrez gain, **anisopteroak** gorputz handiko eta hegaldi azkarrekoak dira, zigopteroak argalagoak eta delikatuagoak izanik. Hori dela eta, Epiprocta subordena sortu da, bere baitan **anisopteroak** eta anisozigopteroak hartzen dituena. ETC-entziklopedia

---

anisotropia *(corpusean ez dago; ETCn **100** agerraldi) iz* fisikan, norabide guztietan ezaugarri berak ez izatea; soziolinguistikan, eta Txillardegiren ekarpenari jarraituz, gizarte diglosiko batean hizkuntza-harremanak loturagabeko bi multzo diferenteetan gauzatzea.

Hauetako adibide bat da Txillardegiren curriculumarekin zerikusia duena, euskararen ezagutza eta erabileraren arteko erlazioa esplikatu nahian fisikako "isotropia-teoria" aplikatu zuenean, edo gerorago beste batzuk **anisotropia**-teoriara pasatuz erlazio bera aztertu zutenean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Abiadura horiek finkatzerakoan kontuan hartu diren baldintza nagusiak hauek dira: arroken **anisotropia** (arrokaren norabide ezberdinetan uhinek duten abiaduren arteko erlazioa), presioa, tenperatura eta dentsitatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Behin spinaren akoplamendu dipolarra lagin solidoetatik kenduz gero, desplazamendu kimikoen **anisotropia** baino ez da geratzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esfortzupean nagusiki norabide jakin batean hazten diren mineralek hazkuntza-**anisotropia** dutela esan ohi da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dena den, gisa horretako Lurreko espazio fisikoaren **anisotropia** -hots, norabideen baliokidetzarik eza- detektatzeko egin diren ahaleginak gorabehera, horrelakorik ez da sekula behatua izan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konpresioarekiko erresistentzian eragina duten faktoreak hauek dira: material zeramikoan egon daitezkeen akatsak, arrakalak, ezpurutasunak, hutsuneak eta **anisotropia** elastikoak eta termikoak, besteak beste. ETC-zientzia, zuzenbidea

Metamorfismoak, eskistositate modura agertzen den **anisotropia** handia eragiten du arroketan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Soziolinguistika matematikoan eta kulturen arteko harremanetan **anisotropia** eta diglosia aztertu zituen, ohiko Fergusen edota Psycharisen ekarpenez harago, hizkuntzen (eta hiztunen) arteko menpekotasuna zer den agerian uzteko. ETC-prentsa

Eta hirugarrena,"arazo moralak edo politikoak sortzen dituena", **anisotropia**: hizkuntza aintzat hartzea bizitzako erabakietan eta bizimoduan. ETC-prentsa

Euskaldunon kontzentrazio geografikoa (hau da, gizarteko **anisotropia**) guztiz beharrezkoa dela erabilpenaren kota jasotzeko. ETC-prentsa

Aldiz, egitura kristalinoa esaten dugunean, modu jakin batean ordenatutako atomoez ari gara, eta ordenamendu horrek sustantzien **anisotropia** dakar, hots, propietateak gorputz horren norabidearen araberakoak izan daitezke. ETC-prentsa

Anisotropia, fisikan, materialen propietate mekaniko edo fisikoak norabidearen funtzioan desberdinak izatea da. Isotropiaren kontrakoa da. ETC-entziklopedia

---

anisotropo *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi) izond* fisikan, norabide guztietan ezaugarri berak ez dituena.

Barne-nukleoa zeharkatzen duten P uhinen abiadurak ikertu zirenean, bertako arrokak **anisotropoak** direla frogatu zen, eta, ondorioz, barne-nukleoa kristalinoa dela onartzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste molekula guztiak, berriz, modu **anisotropoan** polariza daitezke; horrek esan nahi du molekulak eremu elektrikoan duen orientazioaren araberako dela polarizazioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Geruza-egiturak dituzten solidoak **anisotropoak** dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mineral ez-opakuak, aldiz, isotropoetan eta **anisotropoetan** bereizten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Etenune ia lauak direnez, efektu **anisotropoa** eragiten diete arroka multzoaren ezaugarriei. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egurrak, material **anisotropoa** izanik, portaera eta ezaugarri desberdinak ditu ikertzen den norabidearen arabera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ardatz optiko bat bertikal egon ezean (gogora dezagun mineral **anisotropo** baten ardatz optiko bat dela, hain zuzen, argiaren errefrakzio bikoitza edo birrefringentzia egiten ez duena), mineral **anisotropo** guztiak... ETC-zientzia, zuzenbidea

Argi polarizatuzko mikroskopioz begiratzen denean, xingola argiak isotropoak dira (ilunak) eta xingola ilunak **anisotropoak** (distiratsuak), eta I xingola eta A xingola deitzen zaie. ETC-zientzia, zuzenbidea

Akimotoita elastikoki **anisotropoa** da, eta goi eta behe-mantoaren arteko trantsizio sismiko **anisotropoaren** azalpen gisa aurkeztua izan da. ETC-entziklopedia

Hau bakarrik gerta daiteke materialaren egitura **anisotropoa** bada. ETC-entziklopedia

---

anitz *(orobat **anhitz** g.er.)* **1** *zenbtz* asko.

Ez da esan beharrik datu horiek guztiak ongi funtsatuak eta bermatuak direla, nahiz maizkara, datuetan elkarren arteko kontraesan **anitz** aurkitu izan dudan gauzak hemen eta han begiratzen ibili naizenean. Pello Salaburu

Ez gara atzokoak eta jada ez da kolore **anitzeko** herritarrez betetzen kalerik presoen alde. Hasier Etxeberria

Urte **anitz** geroago militante horiek garai lorios horietaz balentriaka eta negarra begian mintzo adi zitezkeen. Itxaro Borda

Datu **anitzek** erakusten dute helduek ahoskera menperatzeko haurrek baino askoz gaitasun eskasagoa dutela. Lourdes Oñederra

Zuzenbide Penala gauzatzean egiten ziren gehiegikeriak, lehen aipatu dugun Calas kasua, Damiens-en urkamendi ezaguna eta beste **anitz**, bateraezinak ziren beharrizanaren irizpidea eskatzen zuen hitzarmen ideiarekin. Juan Martin Elexpuru

Horixe duzue, egun, gerlari ihesi etorriak diren euskaldun **anitzen** lantegia eta han duten bizimodua. Jokin Urain

Esan gabe geratzen ziren gauza **anitz**. Anton Garikano

Behako bat gibelera, Auritz eta Aurizperriko haranei: ardi guti, ene ustez, baina zaldiak, eta bereziki behi **anitz**. Piarres Aintziart

Gaineko eta ingurukoak, noski, kolore eta tamaina **anitzeko** zipriztin, ile eta orbanez bete ziren; konketak, berriz, bizar-ilez eta odol-tantaz apaindurik iraun zuen. Iban Zaldua

Eta hala, bere bihotzeko barrunbeak era ezberdineko opari gisa eskaintzeko, alderdi **anitzetatik** kontsideratzen zuen guztiz bakarra dena. Askoren artean

Irudi **anitzeko** pintura-sekuentzialak ere - esaten du - zinemako eremuz kanpoaren oso antzeko eremuz kanpoa sortzen du (gurutze-bideen adibidea aipatzen du, elizetan Kristoren nekaldia irudikatuz egon ohi diren hamalau irudizko sekuentziak). Josu Zabaleta

Munduan gaur egun egiten ari denari erreparatzen baldin badiogu, segitzen ahal ditugun eredu interesgarri **anitz** daude. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Kristinak bizkar gainean ezarritako edredoi kolore **anitzaren** puska luzeena herrestan zeraman. Aingeru Epaltza

Negu betean, euria eta hotza zelarik, ez zen preso **anitz** ateratzen ibiltokira [...]. Filipe Bidart

Egile **anitzen** teoria postulatzeko beste zantzu bat. Iñaki Iñurrieta

Baina gero harremanmota guztiak ugaldu egiten dira konstituzio-mota **anitz** eratu bitartean. Askoren artean

Industria pribatuari mozala ipini zion eta jende **anitzen** ekimenak ito. Gotzon Garate

Bizitza kolore **anitzekoa** duk. Fernando Morillo

Han dabil bada, Juan Migel Orkolaga langile porrokatua 1902an, Igeldoko bizkarrean, nola itsasoa hala kosta alde luzea ezker-eskuin duela, eta barrualdera mendi lerro luze **anitz** bistaratzen dituela. Pello Zabala

Euskararen alde lan **anitz** da egiteko eta eragile guztien beharra dugu. Berria - Euskal Herria

Etxe hartakoa berekoa zen François Dardan dohatsua, frantziako iraultzan, 1792ko Buruilean hil zutena beste **anitzekin** batean. Marzel Etxehandi

Motorrez eta jantzi deigarriez bakarrik ez, beste gauza **anitzez** ere badakiela erakutsi nahi luke. Oskar Arana

Lanordu gutxi, eskakeatzeko aukera **anitz**, eta neskatilak nonahi. Iban Zaldua

Alde batera eta bestera zebilen zutabe **anitzeko** saloi marmolezkoan zehar. Fernando Rey

Beraiena ez ezik beste herri **anitz** ere badaramate poltsikoetan. Iñigo Aranbarri

Aspalditik Aljerian, molde **anitzeko** izugarrikeriak ikusitakoak. Xabier Montoia

Beltzaran **anitz** bada hemen lapurtzen duena. Harkaitz Cano

Entzuleek eta galdegile **anitzek** behartzen gaituzte hartara; eta iragarpenen huts ttikienak esnatzen dituen latosoen erreparoen beldurrak, erreparatu beharrari halako loturaz eta katez itsatsita sentitzen gara egun osoan. Pello Zabala

Zakurrek salerosketa handiak sortu eta jende **anitz** erabiltzen dute dantzan: zakur hazteko tegiak, albaitariak, Gotzon Garate

Gutxiagotan ordea alderantziz, nahiz eta gure artean faltsu **anitz** baden, txoria eho eta eskua gordeka ari dena. Itxaro Borda

Erromako etxe atari **anitzetan** idazki bat zegoen: "Cave canem", alegia, "Kontuz zakurrarekin!". Gotzon Garate

Jende **anitz** ezagutuak ziren eta berri sail edota emankizun ezberdinetan entzuten ziren. Menane Oxandabaratz

Balioekin lan egiten duten zientzietan, bereizketa hori behar praktikoa da, eta kasu **anitzetan** erabatekoa ere bai. Isabel Arrigain

Buruhauskarriaren piezek antolaera **anitz** onartuko balute bezala. Iñaki Iñurrieta

Zelula **anitzez** osaturiko gorputz bakarra balira bezala, txindurritegi baten antzera hasiko dira mugitzen denak batera, autobusak azaldu beharko lukeen aldera. Xabier Mendiguren Elizegi

Anitz dira bizipozik ez eta beren buruez beste egiteko prest daudenak. Gotzon Garate

Hark gauza **anitz** eta sinestezinez idatzitako idazlan asko karteran sartuta joaten nintzen beti eskolara, eta oso itxura ona ematen nuen. Pello Lizarralde

Zonzo Hego Ameriketako herri **anitzetako** berba bizia da. Iñigo Aranbarri

Bi mila tatariarrek zituzten han beren dendak ordena egokian jarriak, eta zaindari **anitz** zebilen erne inguruan. Karlos Zabala

"Ene historiaz badakik **anitz**, nihaurek kontaturik eta sentitzen dikek, behar bada inkontzienteki, konfidente neurotiko ideala naizela". Piarres Aintziart

Jantzigain beltzetan, elurraren antzeko loreak zituen zuhaitz zuria zeramaten brodaturik, zilarrezko koroa baten eta punta **anitzeko** izar askoren azpian. Agustin Otsoa

Ugalketa giza sexualitatearen alderdi **anitzetako** bat besterik ez da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Telebista **anitz** eta bizia jori, maiteok! Jose Angel Irigaray

-Jende **anitz** bazela eta... kanpoan euria eta.. ø hona jin naiz. Daniel Landart

2 (dagokion izenaren ezkerretara)

Dokumentuetan agertzen dena da beste herritarren eskubide berak ez zituztela agoteek, baita **anitz** gauza debekatzen zitzaiela. Herria

Iduritu zaigu museo berriak **anitz** jende harritzen ahal zuela eta argitasunak beharrezkoak zirela. Herria

Anitz metroren bidegurutzea zen Grand Central. Iñaki Zabaleta

Anitz gudari bildu zen Davidengana Hebronen, borrokarako trebaturik, Saulen erregetza Davidi emateko, Jaunak agindu bezala. Hona hemen gizon haien kopurua: Elizen arteko biblia

Borrowek dio, **anitz** gauza "uher, oker eta hipotetiko" zirenak idatzi izan direla hartaz. Aurelia Arkotxa

Horregatik, bibliografiako **anitz** erreferentzia lehen ikastaroak gainditzeko behar baino askoz zailagoak, sakonagoak, espezializatuagoak dira. Lourdes Oñederra

Ediporen antzera, gizakiok ez bi baino hiru edo **anitz** ahotsez mintzo gara: ni, zu, hura; identitaterik eza, itsumenera eramango gaituen jatorrizko bekatua. Juan Kruz Igerabide

Seta hori hartua zeukan, hankapean ikusi nahi zituen Euzkadi galtzen utzia zuten aliatuen hiriburu guztiak eta, esan diat, **anitz** euskaldun ginen ados. Koldo Izagirre

Zeren hazte alaian handitzen eta helduaroko mailak banan-banan igoten ikusten dituzun gauza guztiek galtzen dutena baino lehenki gehiago hartzen baitute, jana zain guztietan aisa sartzen deno eta **anitz** osagai galtzeko eta xahutzea hartzen duten bizia baino gehiago izateko beste gauzak laxotzen ez direno. Xabier Amuriza

Kanpoko kausetarik datozen gauzek, alabaina -**anitz** alderdi izan ditzaten ala guti- kanpoko kausaren bertuteari zor diote berek duten betegintzarre edo errealitate guztia eta horrengatik kanpoko kausaren betegintzarre soiletik dator haien existentzia eta ez berenetik. Piarres Xarriton

Ikaragarri nabarmentzen zen urrezko erloju kate txerlotu bat, erdian katenbegi handiak zituena, eta **anitz** zintzilikario pinpirinez hornitua: errebolbertxoa, ganibetatxoa, hortz eskuila eta zintzarritxo maitagarri txiki-txikia, dena urre puru-puruzkoa. Matías Múgica

Baziren Frantziako Ancient Régime zelako hartan **anitz** lege, ohitura eta abar hamaika eskualde, herrialde eta gainontzekoetan. Andres Urrutia

Karlos Santamariaren izena ez zitzaidan arrotz, sorterritik urrun ikasten nenbilen 1945-1955 urte haietan, "Donostiako Solasaldi Nazioartekoez" eta haien zuzendariaz **anitz** aipu baitzen bazterretan. Piarres Xarriton

Anitz urtez, Schneider andrea! Fernando Rey

Txakurrak eta zaldiak (egin nuen neure baitan) badute lehen gaitasun hori; **anitz** hegaztik, berriz, hala nola Zesareen erresinolak, orobat bigarrena. Juan Garzia

Eta sinestezina zaio lagun bakar bati **anitz** liburuk eragitea gozamena. Markos Zapiain

Anitz kardinale beren karrozekin beha zeuden etxe-kantoietan, gizon handi eta sainduaren itxura ikusteko. Piarres Xarriton

Arbolatik jaitsi eta euskaraz mintzatzen hasi zen - kondaira luze batean, aurrena hanka biren gainean ibiltzen eta, **anitz** gauza bitxi egiten ikasi eta gero. Joxe Azurmendi

Ganadua ferian saltzera doan **anitz** nekazari txapeldun. Koldo Izagirre

Nire herriari Thiuda deritzo; guk behinik behin hala esaten diogu, baina gure auzoek, erran nahi baita gure etsaiek, **anitz** izenez derizkute, Saksa, Nemet, Alaman. Juan Garzia

Giza arrazaren bilakaera luze eta gorabeheratsuan, planeta honetan dagoeneko heldu den garaian gizakiak, zientziaren eta teknologiaren bizkortze izugarriari esker, bere inguruan duen guztia **anitz** modutan eta orain arte ikusi gabeko neurrian eraldatzeko boterea eskuratu du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

• **3** *adlag*

Mike, Watts auzoan sortua zen eta bere amaren etxetik ez zen **anitz** urrundu. Itxaro Borda

Zorigaitzez, jauregiak badu **anitz** sofriturik, nahiz eta errespetu haundiena mereziko zuen bere sabelean dauzkan oroitzapenen gatik, mendez mende bizi izan dituenengatik. Michel Oronoz

Ilargia egin zait maitagarri, **anitz** estimatzera iritsi naiz. Pello Zabala

Anitz aspaldi heriotzerat kondenatuta gero, han dauzkate, luzaroan, noiz hilko, noiz ez hilko, pentsamendu samingarri hartan beti sufritzen... Jokin Urain

Sokoa untzia **anitz** handitu da, gaur egun 230 langile ditugu, interim-ekoak kontatu gabe. Herria

Dudarik gabe, **anitz** gostatzen dira gauzak eta bada oraino **anitz** egiteko. Herria

4 (izenondo gisa) *(Euskaltzaindiaren Hiztegiak adiera hau baztertu egiten du, **askotariko** eta gisakoak proposatuz)* askotarikoa.

Aise da erraten, ordea, eta zailago egiten: aitzin eguneko gertakizun **anitz** eta ezberdinei loturiko irudiek kuku egin zidaten kaxko barnean, hodei jostari eta anker baten moduan, zein baino zein urragarriago. Aingeru Epaltza

Hiriak **anitzagoa** behar du, ezinbestez. Lutxo Egia

Legeek ez dituztenez arautzen herritarren mugimendu eta ekintza guztiak, eta, hain **anitzak** direlako hain zuzen, ezin arautu dituztenez, ondorioa da agintzen ez dena eta

debekatzen ez dena ia infinituak direla eta nork bere nahitara egin dezakeela, ala egin ez. Esteban Antxustegi

Ezta, bestalde, irudimen berritzaileak lekarkeen irudigintza **anitza** eta nabarra ere, hedarazitako irudiak baino, telebistatik, bideotik, zinematik jasotako irudiak. Xabier Mendiguren Elizegi

Europa sozialaz gain, Europa **anitzaren** aldarrikapena ere egin zuen Ibarretxek. Berria - Euskal Herria

Hori lortzeko bideak, baina, **anitzak** bezain korapilatsuak dira. Berria - Euskal Herria

Adierazpen hau sinatzen dugunok, Egunkaria-ren itxiera basatiaren aurka Euskal Herrian oldartutako gizarte aktibo **anitza** dugu gogo hurbilean. Berria - Euskal Herria

Hiri honek eskaintzen duen anonimatoa estimatzen du eta hiri multikulturala izateak ematen dizkion erreferentzia **anitzak** ere bai. Harkaitz Cano

Baina urrats honek ez zuen, berez, dirua asmatzea ekarri aukeraturiko produktu horiek oso **anitzak** zirenean eta ez metalezkoak soilik. Iñaki Mendiguren

Izaki **anitza** izan arren, bakarraren legez mugitzen zena zelai berdean behera. Hasier Etxeberria

Ondoren aurkitu den erakusgarria froga **anitza** da -ez froga bati eransten zaion beste froga bat-, aldiz, ehun edo mila aldiz biderkatutakoa. Koro Navarro

Hortik datoz, etorri ere, Erromako legeetan diren izenik gabeko kontratu **anitzak**. Andres Urrutia

Bere lanbide **anitzak** albo batera utzi eta idazten jardun zuen gelditzen zitzaizkion egun jorietan, eta etxetxo txuri bat erosi ahal izan zuen Danubio ibaiaren ertzean. Iban Zaldua

[...] maitasunaren ozpinak dastatzeko, bizitzaren dekadentziaz ohartzeko edo historia interpretatzeko, testuinguruak bezain **anitza** baita metafora baten balioa. Anjel Lertxundi

Globalizatzen gaituen kontsumo gizartearen aurka doa irudiz tribua, hautsia, **anitza**, ele lauduna, purruskatua, gustu ezberdinen artean beti urratua. Itxaro Borda

5 *adimen anitz* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Batzuk aipatzearren, ikaskuntza dialogikoa, **adimen anitzak**, ikaskuntza kooperatiboa eta proiektuen bidezko ikaskuntza, ulermenerako ikaskuntza edo zerbitzu ikaskuntza. ETC-prentsa

Zer du, bada, xakeak, erreferentziazko tresna hezitzailea izateko? Pello Agirrezabal HH eta LHko zuzendariak argi du: "Elkartasuna, errespetua eta **adimen anitzak** erabat lantzen ditu". ETC-prentsa

Howard Gardnerren adimen anizkoitzaren teoriari loturik daude. Montserrat Del Pozo egilearen ikuspegitik gauza bera dira **adimen anitzak** eta gaitasunak. ETC-entziklopedia

6 *aldagai anitzeko analisi* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Datu hori bestelako aldagaiekin nola lotzen den zehaztea "oso zaila" dela uste du Etxeberriak: "**Aldagai anitzeko analisi** bat egin beharko litzateke horretarako". ETC-prentsa

Horretarako, analisi deskriptiboa, diferentziala eta **aldagai anitzeko analisia** erabili dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Guk, paleontologoen belaunaldi erradikalak, estatistika eta ordenagailuak lotu genituen **aldagai anitzeko analisiaren** teknika ikasi genuenean. ETC-literatura, saiakera

Prozesua honako hau izan da: EGINSOFT enpresak egindako grabaketa-prozesua, datu-base etiketatu bat sortzea eta estatistikako Barwin softwarearekin lantzeko prestatzea, kalkulu-orriaren bidez, eta R estatistika-programarekin gerorako **aldagai anitzeko analisi** estatistikorako datu-base bat sortzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hainbat aldagai batera aztertzen duen **aldagai anitzeko analisiko** teknikak ere garatzen dira. ETC-entziklopedia

Estatistikan, korrespondentzia-analisia, **aldagai anitzeko analisiko** teknika bat. ETC-entziklopedia

7 *aldagai anitzeko banaketa normal* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Izan bedi x bektore bat, n osagai dituena, eta **aldagai anitzeko banaketa normal** estandarizatuari jarraitzen diona... ETC-zientzia, zuzenbidea

8 *aldagai anitzeko kalkulu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Geometria diferentzialeko eta tentsore-kalkuluko matematikaren arloetan, forma diferentzialak hurbilketa bat dira **aldagai anitzeko kalkulura**, koordenatuen menpe ez dagoena. ETC-entziklopedia

9 *alde anitzeko*

Hori da esaten duguna, nahiz baieztapen hori alderdi aniztuna den - **alde anitzekoa** esan nahi dut hitz honekin-, eta abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren arteko harremanak aski nahasiak diren. Pello Salaburu

Bakea eraikitzeak prozesu oso bat, globala eta **alde anitzekoa**, martxan jartzea eskatzen du» eta prozesu horrek ahalbidetuko du "euskal herritar guztien eskubide ororen errespetuan oinarritutako eszenatokia», eta ez alderantziz. Berria - Euskal Herria

Bestalde, normalizazio politikoa lortzeko, alderdien arteko **alde anitzeko** elkarrizketa beharrezkoa dela adierazi zuen EAJko lehendakariak. Berria - Euskal Herria

Alde anitzeko zorretik jaso beharko litzatekeenaren %10 da Erresuma Batuari dagokiona. Berria - Ekonomia

Azken berrogeita hamar urteok politika globalaren instituzionalizazio izugarri zabal bat ikusi dute, **alde anitzeko** akordio pila bat, instituzioak, gobernuz gaindiko goi bilerak... Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

10 *alderdi anitzeko sistema*

Alderdi anitzeko sistema ezarri, eta alderdi askok desengainua hartu zuten, aurreko sistema itxuraz soilik aldatzen zela ikusita. Berria - Mundua

"Lorpenak» bermatzeaz gain, "horretan soilik gelditu ez» eta **alderdi anitzeko sistema** sendotuko duela esan zuen atzo. Berria - Mundua

11 *anitz esker* eskerrik asko.

Anitz esker, beraz. Baina ez daukat Euskaltzaindiaren izendapena onartzerik. Berria - Kultura

- **Anitz esker**, maitea. Iñaki Zabaleta

- **Anitz esker** baina ez dut joan nahi, ez nago gogoz. Iñaki Zabaleta

"Adiskide zintzoa, **anitz esker"**, erran zidan, eskua tinkaturik, "argibideak hartuko ditut". Jon Muñoz

· **Anitz esker** behar dizkizut eman, hain zure gutunaren beharretan nintzen! Jon Muñoz

12 *anitz eta anitz*

Lantegiak erreak baitziren, preso **anitz eta anitz** kanpoko komandoetara igorriak izan ziren, eta haien artean lagun on frango, gehiago ikusiko ez nituenak, bakar batzuk salbu, Belokera, gero, ikustera jin zaizkidanak. Marzel Etxehandi

Ez dute ardietsiko **anitz eta anitz** urtez, non batean eta, batez bat, Espainiako bertze eskualdeak beren gain jartzera ez diren oldartzen... Piarres Xarriton

Hala ere, **anitz eta anitz** dira udaltzainen isun-gaztigua haizetakoan daramatela inpunitate osoz lekutzen direnak. Aingeru Epaltza

Kultura **anitz eta anitzetan** ohore edo beldur ekarri izan dizkiote. Gotzon Garate

Arima aldez edo moldez inguru geografikoari lotzen dutenak **anitz eta anitz** dira, baina ez Gaztelako paisaiari bakarrik. Joxe Azurmendi

Nik banuen lana, Wirth irakaslearekin ari bainintzen, baina **anitz eta anitz** ziren langabeziaren putzuan usteltzen zirenak. Alberto Ladron Arana

Bertze **anitz eta anitz** populu badituzu leku horietan, luzeegi litzateke hemen denen aipatzea eta funtsean, anitz ez ditut nihaurek ikusiak ere. Aurelia Arkotxa

Jainkoak berak egin beza Zure Goitasunak, zure Andre guztiz kartsu Juana Alhamako Duke eta Gobernadore Argiarekin batean, erdiestea **anitz eta anitz** urte iragatea, Nestor-ek bezala, amets guztiak gainditzen dituzten goiko dohainek gero eta gehiago onturik irauteko gisan, halabiz! Piarres Xarriton

13 *anitz eta anitzetan*

Kultura **anitz eta anitzetan** ohore edo beldur ekarri izan dizkiote. Gotzon Garate

14 *anitz urtez*

Anitz urtez, Schneider andrea! Fernando Rey

15 *anitzez*

Inbestizamenduaren ondorioa hauxe da: gazteriaren zerbitzuak leku eta material aldetik **anitzez** hobeki dohatuak direla leku berrian. Herria

Bestalde ez ditugu ofizialeak ahantzi behar, Angelun uste baino **anitzez** gehiago ofiziale baitugu. Herria

Duela 80 urteko partidak gaur egungoak baino **anitzez** epikoagoak ziren baina, aldi berean, poesia gehiago zutela esango nuke. Berria - Kirola

Antolatzaileek **anitzez** gutxiago espero zituzten. Berria - Ekonomia

Azterketa bidea murritzen dituzte, **anitzez** merkeagoa ateratzen zaielako azterketa ez duen bat. Berria - Harian

Gure aitak diruaz zituen ideiak, gerra ondoren, **anitzez** ere lausoagoak eta nahasiagoak ziren sekula baino. Fernando Rey

Eta bertze ibai bat, Baigorrikoa baino **anitzez** handiagoa: Ebro. Ana Urkiza

Izan ere, muga orotarik haratago, iragana zehatz-mehatz oroitzea baino **anitzez** ere inportantagoa zen, ene ustez, iraganaren usainen eta aromen oroitzea. Joan Mari Irigoien

Luzaide, zabal baino **anitzez** luzeago baita, horrengatik ezarria izaiten ahal zen Luzaide edo Luze bide, nola baitira etxeen eta auzo edo kartierren izenak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Atzokoa baino **anitzez** ere handiagoko gaztelua. Koldo Izagirre

Ez zara ziur hogeigarren mendean zaudenetz edo **anitzez** lehenago. Xabier Montoia

Aberatsak halaber Jainkoaren haur izanki, agian pobre larru-hasak baino **anitzez** gehiago pleinitzekoak dira, gaurko mendean hedatzen ari den pikarraitzea garatzen ikustean, sekula ukan ez duten kontzientzia txarra jasaten dutelako, aberats izateagatik. Itxaro Borda

Anitzez hobe zen, ordea, jadanik bazekitena ez ukatzea. Eneko Bidegain

Ez zekien, ordea, ni bere adimen zabalaz eta bihotz onaz liluraturik nindukala, bai bera bai Antonioren ama mirespenez nekuskiela, ene irudiko neure gurasoak baino **anitzez** bihotz zabalagoak zirelako. Aitor Arana

Eta oraino **anitzez** berantago, bera baino aise makurrago elemeniaka zirela, sabela bete hagin, bihotza bete askatasun egarri. Jose Angel Irigaray

Anitzez geroago, Doneztebeko egun beltz hartatik bizirik ateratakoen ahotik bildu zituen Migelek Ramonen azken buruaren xehetasunak. Aingeru Epaltza

-Eta beharrik meza dugun, bertzenaz... **anitzez** makurrago ibiliko ginateke. Pello Lizarralde

Egindako pauso erraldoi horrek azken erpina joko du euskaltzainok barrez hasten garelarik "ajataka" egin beharrean "ahataka" egiten badugu, nahiz eta "ahataka" hastean zintzurra oharkabeki trabatzeko moduan jarriko zaigun, ez baita konparaziorik, euskaldunok **anitzez** errazago egin izan dugu "ajataka" "ahataka" baino. Pello Salaburu

16 *anitzez eta anitzez*

Eta zendako hiru hilabete? ez duzu uste epe hori **anitzez eta anitzez** laburtzen ahal genukeela? Janbattitt Dirassar

Halako gailurrak lortzeagatik, irudimena bizkortzeagatik, bidente bilakatzeagatik, azken batean bere eleberrien amoreagatik, Balzacek, Goriotek alabengatik bezala, bere burua sakrifikatu zuen: kafe katilukada **anitzez eta anitzez** zigortzen zuen gibela, bere burua egunean hogei orduz idaztera behartuz. Markos Zapiain

17 *aukera anitzeko galdera* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Ariketa hauen helburua hauxe da: ikasleak **aukera anitzeko galderei** erantzuna ematen trebatzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oro har, testu-ulermena lantzeko eta ebaluatzeko **aukera anitzeko galderak** eta galdera irekiak erabili ohi dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hezitzaile elebidunik ez badago eskura, lehen hizkuntzan idatzitako argibide sorta bat presta daiteke ikasleari eskatzeko ataza batzuk egin ditzala, hala nola "Marraztu bat", edo **aukera anitzeko galderei** erantzun diezaiela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Likert eskalak **aukera anitzeko galderak** izaten dira, normalean baieztapen batekiko adostasuna edo desadostasuna adierazteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tresna hori erabiliz, mota ezberdinetako ariketak sor daitezke, adibidez, **aukera anitzeko galderak**, hutsuneak bete motako ariketak edo ikasleak elementuen ordena zuzena erabaki behar duen motako ariketak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eduki interaktiboen gabeziak: hutsuneak betetzea, **aukera anitzeko galderak**, egia-gezurra formatuko galderak, scorm galdetegiak, Geogebra jarduerak etab. ETC-entziklopedia

18 *aukera anitzeko proba* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

6. testa, irudiak bukatu beharrekoa, jaiotzetiko adimena neurtzeko Alfa testeko **aukera anitzeko probaren** analogo irudiduna da. ETC-literatura, saiakera

Aukera anitzeko probak, parekatzekoak, egia-gezurra erakoak, ordenatzekoak, osatzekoak, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

19 *erabiltzaile anitzeko* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

DBKSa erabiltzaile bakarrekoa da, baldin eta aldiko gehienez erabiltzaile bakarrak erabil badezake sistema, eta **erabiltzaile anitzekoa** da, baldin eta aldi berean erabiltzaile batek baino gehiagok erabil badezakete sistema -eta, beraz, datu-basea atzi badezakete-. ETC-zientzia, zuzenbidea

MySQL Datu-baseen kudeaketarako erlazio-sistema bat da, SQL erabiltzen duena, hari eta **erabiltzaile anitzekoa**, milioi bat instalazio baino gehiago dituena. ETC-entziklopedia

20 *esker anitz* eskerrik asko.

Esker anitz. Lourdes Oñederra

-Mila **esker anitz** zure konfiantzarengatik -esan diot-. Txillardegi

Ermitari eta Basoiri **esker anitz** gauza berri ikusten dut eta zinez nasaiki ene herriaz ikasten ari niz. Michel Oronoz

-Santxo lagun, **esker anitz** damaizkiot zeruari, nik ezer dohatsurik aurkitu izan baino lehenago, hiri halabeharra on-aldiz harrera on bat egitera irten izana bidera. Patxi Ezkiaga

21 *eskerrik anitz*

Ongi esana, Ouroana maitea, **Eskerrik anitz**, Mogueime maitea, baina ni emakume xume bat baizik ez nauk, lizentziatua banaiz ere, Eta ni gizon xume bat, zuzentzailea izanik ere. Jon Alonso

-Eskerrik anitz. Aitor Arana

Eskerrik anitz, gorentasun hori; baina ez baitut noski gisa. Juan Garzia

22 *faktore anitzeko autentifikazio* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Faktore anitzeko autentifikazioa, kautotze autentifikazio metodo bat da zeinean ordenagailu erabiltzaile batek autentifikazio mekanismo batean gutxienez bi froga edo faktore aurkeztu behar ditu sarbidea lortzeko. ETC-entziklopedia

Faktore anitzeko autentifikazio-planek pasahitzak ("ezagutza-faktore" gisa) autentifikazio-bitarteko batekin edo gehiagorekin konbinatzen dituzte, autentifikazioa seguruagoa izan dadin eta konprometitutako pasahitzekiko zaurgarritasun txikiagoa izan dezan. ETC-entziklopedia

23 *faktore anitzeko kautotze* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Sareen segurtasunaren oinarria kautotzea da, normalean erabiltzaile eta pasahitz batekin. Kautotze prozesuak egiteko, faktore anitzeko autentifikazio edo **faktore anitzeko kautotze** terminoa erabiltzen da. ETC-entziklopedia

24 *geruza anitzeko kommutadore* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Geruza anitzeko kommutadoreek bideratzaile moduan joka dezakete eta VLAN desberdinen arteko konexioa eskaini. Kasu horietan ez dago sarbide mailako kommutadoreen beharrik. ETC-entziklopedia

25 *maila anitzeko marketin* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Maila anitzeko marketinean saltzaileek bere salmentengatik lortzen dituzten komisioez gain, antolaketa egituran osatzen duten "azpiko" beste saltzaileek egindako salmentekin ere komisioak lortzen dituzte. **Maila anitzeko marketina** egiten duten konpainiak, maiz salmenta zuzeneko enpresak, kritika asko jaso dituzte. ETC-entziklopedia

26 *milesker anitz*

-Milesker anitz, Gaueko, milesker. Michel Oronoz

Baina ikusten nuen zaintzaleek begiak sutan zituztela, eta ene baitan izorra zizte! pentsatzen nuelarik, **milesker anitz**! erraiten nien ene irri faltsuenarekin, ongi erakutsiz zerbitzari onak zirela. Filipe Bidart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aldaketa anitz (5); **anitz aldatu** (9); **anitz aldatu da** (5); **anitz aldatuko** (5); **anitz aldiz** (18); **anitz ari** (5); **anitz bada** (17); **anitz badira** (5); **anitz behar** (6); **anitz bezala** (5);

anitz da (7); **anitz dago** (9); **anitz daude** (6); **anitz denbora** (10); **anitz dira** (42); **anitz ditu** (6); **anitz egin** (34); **anitz egin du** (6); **anitz egiteko** (5); **anitz egiten** (18); **anitz ekarri** (6); **anitz eman** (13); **anitz ere** (18); **anitz erran** (6); **anitz esker** (6); **anitz eta anitz** (10); **anitz ez dira** (5); **anitz gauza** (52); **anitz gehiago** (13); **anitz gelditzen** (6); **anitz gizon** (5); **anitz ikasi** (8); **anitz izan** (20); **anitz izaten** (5); **anitz jende** (19); **anitz jendek** (5); **anitz lagundu** (5); **anitz lekutan** (7); **anitz maite** (9); **anitz mintzo** (6); **anitz tokitan** (6); **anitz urte** (10); **anitz urtez** (7); **anitz ziren** (5); **arrazoi anitz** (5); **aukera anitz** (11); **baina anitz** (13); **baino anitz** (7); **bertze anitz** (37); **bertze anitz gauza** (6); **beste anitz** (62); **biziki anitz** (6); **denbora anitz** (13); **denbora anitz eman** (5); **diru anitz** (8); **esker anitz** (7); **euskaldun anitz** (5); **ezen anitz** (5); **gai anitz** (5); **galdera anitz** (7); **gauza anitz** (43); **gazte anitz** (5); **haietarik anitz** (8); **hori anitz** (6); **jende anitz** (64); **kalte anitz** (5); **lan anitz** (15); **oraino anitz** (5); **preso anitz** (5); **urte anitz** (12); **zeren anitz** (5)

anitza izan (5)

anitzak dira (9)

anitzek egin (5); **anitzek ez dute** (10); **anitzek uste** (6); **beste anitzek** (9); **gazte anitzek** (7); **herritar anitzek** (7); **jende anitzek** (21); **lagun anitzek** (5)

alde anitzeko (11); **alderdi anitzeko** (7); **balio anitzeko** (25); **balio anitzeko berba** (6); **balio anitzeko hitza** (5); **erabilera anitzeko** (8); **ezker anitzeko** (8); **kolore anitzeko** (20); **nazio anitzeko** (5)

balio anitzekoa (7)

anitzen artean (8); **anitzen arteko** (5); **beste anitzen** (8); **jende anitzen** (8)

alde anitzetako (8)

anitzetan bezala (9); **anitzetan erran** (12); **anitzetan ez** (14); **anitzetan gertatu** (5); **bertze anitzetan** (5); **beste anitzetan** (5); **leku anitzetan** (11); **toki anitzetan** (7); **urte anitzetan** (6)

anitzez berantago (6); **anitzez ere gehiago** (7); **anitzez gehiago** (28); **baino anitzez gehiago** (11); **modu anitzez** (10); **modu anitzez hunkitua** (5)

---

anitzetan 1 *iz* maiz, sarri, usu.

Hau, **anitzetan**, entzuten dena ulertu gabe gertatzen da. Patziku Perurena

Maria andreak **anitzetan** entzun zituen hau bezalako bakarrizketak. Jon Alonso

Eguraldi-gizon edo eguraldi-maisuak halako soinuak jasotzen ditugu, **anitzetan** jaso ere, trumoi soinu eta danbarretaz gainera. Pello Zabala

Anitzetan bakarrik nintzen, bakarretan lankide baten konpainian, honek plaza anonimoaren xarma dasta ez zezakeela ere. Itxaro Borda

Zure buruari galde egin diozu **anitzetan** zeren kariaz ezin duzun jokatu bertze soldaduek bezala, inguruko izugarrikeriei itsuarena egin eta biziaz ahalik eta gehien gozatu. Xabier Montoia

Anitzetan, gerraz geroztik batez ere, pentsatzen nuen Jainkoak okerreko garai batean munduratu ninduela. Alberto Ladron Arana

Lagunak izaten jarraitu genuen, noski, eta **anitzetan** ibiltzen ginen elkarrekin, asteburuetan nagusiki. Aitor Arana

Hitza **anitzetan** jan dute. Berria - Ekonomia

Krisi horiek **anitzetan** jin ziren, eta gero eta bortitzagoak beti; azkena hain izan zen oldar handikoa, non bihotza arras erori baitzitzaidan, eta une batez beldur izan nintzen alferrikako garaipen bat erdietsi izanaz. Jon Muñoz

Anitzetan, aurre-juzkuz beteta dago gure sistema literarioa. Ana Urkiza

Baina nolakoa da **anitzetan** unibertsitatean aterpe bila dabilen euskal erakustun hori? Pello Salaburu

2 *anitz eta anitzetan*

Kultura **anitz eta anitzetan** ohore edo beldur ekarri izan dizkiote. Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anitzetan egiten (3); **anitzetan entzun** (4); **anitzetan entzuten** (3); **anitzetan erraiten** (3); **anitzetan erran dizudan** (4); **anitzetan erran izan** (5); **anitzetan ez da** (4); **anitzetan gertatu izan** (3); **anitzetan gertatzen** (3); **anitzetan mintzatu** (3); **anitzetan mintzatzen** (4); **anitzetan pentsatu izan** (3); **anitzetan pentsatzen** (3); **baina anitzetan** (3); **bertze anitzetan bezala** (4); **beste anitzetan** (5); **beste leku anitzetan** (4); **da anitzetan** (10); **ere anitzetan** (4); **etxe anitzetan** (4); **leku anitzetan bezala** (3); **toki anitzetan** (7); **urte anitzetan** (6); **zeren anitzetan** (3); **zuen anitzetan** (4)

---

anitzez ik **anitz**.

---

anixko *zenbtz/adlag* 'anitz'en txikigarria.

Agintaritzari laguntzearen ordaina izan zen gehienez bost urteko kondena eta jokabide onagatik denbora **anixko** urrituko ziotelako bermea. Oskar Arana

---

anizdun ik **aniztun**.

---

anizkoi ik **anizkoitz**.

---

anizkoitz 1 *iz* zenbaki oso bati buruz, hura beste zenbaki oso batez biderkatuz lortzen den edozein zenbaki. ik**multiplo**.

Zeren eta substantzia gorputzuna zatiezin, bakar eta mugagabea baizik ulertzen ahal ez dena, haiek **anizkoitz** eta zatikorra bezala pentsatzen baitute hortik gero ateratzeko mugatua ere dela. Piarres Xarriton

Gainera, badaude maiztasun harmonikoak, oinarrizkoaren **anizkoitz** osoak. Lourdes Oñederra

· **2** *izond* anizkuna.

Eta gauzak bat edo **anizkoitz** badira, horrek bat den zerbait badela esan nahi du. Askoren artean

Famili poliposi **anizkoitza** dutenek enbrioiak aukeratu ahalko dituzte Erresuma Batuan. Berria - Gaiak

Orain, aurrera joz, ohar zaitez gauza guztien lehenkiak nolakoak eta zein forma ezberdinekoak diren, zein bariatuak diren euren itxura **anizkoitzetan**; ez forma berdinez hornituak gutxi direlako, oro har denak denen berdinak ez direlako baizik. Xabier Amuriza

Gauza horietan ezinbestekoak izaten dira zuhurtasun arduratsua eta buru argiarekin pentsatzea, ezin izaten baitira makinarik gabe eta ikasketen indar **anizkoitz** eta treberik gabe egin. Santiago Iruretagoiena

3 *adimen anizkoitz* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Bestalde, ikaslearen hausnarketa eta gogoeta prozesua irakaskuntzaren ardatz bihurtzeko prozesu horretan, ikusteko pedagogia tresnak, multimedia, lan kooperatiboa, **adimen anizkoitzak**, pentsatzeko abileziak eta errutina baliabideak ere txertatuko dituztela aitatu du Solabarrietak. ETC-prentsa

4 *esklerosi anizkoitz*

Marihuanak **esklerosi anizkoitzaren** sintomak murrizten dituela esan dute. Berria - Gaiak

Batak Eddie zuen izena, **esklerosi anizkoitza** zuen, biek oso maite zuten musika, elkarren aldameneko geletan zeuden, elkarrekin jesartzen ziren... Xabier Olarra

5 *integral anizkoitz* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Integral anizkoitzak integral bakunetara laburtzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Integral anizkoitzak integral berrituen bidez kalkulatuko ditugu eta aldagai-aldaketak landuko ditugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *izar anizkoitz* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Zeta Antliae, **izar anizkoitz** edo izar multiplea da. ETC-entziklopedia

Capricorni Aa bezala **izar anizkoitz** bat dela uste da. ETC-entziklopedia

Castor, berriz, **izar anizkoitz** bat da, sei izarrek osatutakoa. Horietatik dizdiratsuenak sekuentzia nagusiko izar zuriak dira. ETC-entziklopedia

Izar anizkoitz bat da. Haren izenak "erregetxo" esan nahi du. ETC-entziklopedia

7 *proportzio anizkoitzen lege* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

John Daltonek lan honen gainean ikerketak bideratu zituen eta **proportzio anizkoitzen legea** garatu zuen: elementu bat baino gehiago konposatu mota bat baino gehiago eratzeko elkarrekin konbinatzen direnean, elementu baten masa kantitate berberaz konbinatzen den beste elementuaren masak, zenbaki oso eta sinpleen araberako erlazioan daude. ETC-entziklopedia

---

anizkoiztasun *iz* anizkoitza denaren nolakotasuna.

Azpian dagoen arazoa honako hau da: nola da posible aldi berean Batasunaren eta **Anizkoiztasunaren** existentzia onartzea? Askoren artean

Ez da bilatzen, orduan, testutik pentsamendura pasatzea, berriketatik isiltasunera, kanpokotasunetik barrukotasunera, sakabanaketa espazialetik instantearen barnera biltzera, azaleko **anizkoiztasunetik** batasun sakonera. Xabier Arregi

---

anizkun 1 *izond* hainbat osagai berdin edo berdintsuz osatua. ik**anizkoitz 2**.

Substantibo bakun batek aditz **anizkun** bat goberna zezakeen. Juan Garzia

Bidezko bailitzateke bele hegalariek batzuetan luma zurietatik kolore zuria igortzea eta hazi beltzetatik zisne beltzak edo beste edozein koloretakoak, bakunak zein **anizkunak**, etortzea. Xabier Amuriza

Eskaera guztien artean, nagusi dira bigarren seme-alabagatik egindakoak (%82); hirugarrenagatik, berriz, %13 eskatu ziren; eta, gainera, %5 erditze **anizkunengatik**. Berria - Euskal Herria

- Irudi bakarra vs. irudi **anizkuna**: bakartasun edo aniztasun horiek espazioaren arabera definitzen dira. Josu Zabaleta

Berea da "Inteligentzia **anizkunaren** teoria" zeinak, azken hogeitaka urteotan, ondorio nabarmenak izan dituen Hezkuntzan, Psikologian eta Enpresa munduan. Txema Ramirez de la Piscina

2 *dardarkari anizkun*

Terminologia horretan, benetako dardarkaria **dardarkari anizkuna** deitzen da. Lourdes Oñederra

3 *adimen anizkun* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ustea da planteamendu hippya dela, baina **adimen anizkunak** ere hippyak ziren, eta gaur egun curriculumaren barruan daude. ETC-prentsa

4 *esklerosi anizkun* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Esklerosi anizkuna gaitza daukaten emakumeek lan merkatura sartzeko dituzten arazoen arrazoia jakiteko, azterketa egin berri du **Esklerosi Anizkunak** Kaltetutakoen Bizkaiko Elkarteak (ADEMBI), Bizkaiko Diputazioaren laguntzarekin. ETC-prentsa

Esklerosi anizkuna duten gaixoak Donostian bildu dira asteburuan. ETC-prentsa

Baina Dutchess Countyko zure auzokideei buruz ondoen oroitzen duzuna da etxe haietan gertatu ziren tragediak, hala nola **esklerosi anizkunak** jo zuen hogeita zortzi urteko emakumea, edo aldameneko etxean aurreko urtean alaba minbiziak jota hil zitzaion adin ertaineko bikote desolatua. ETC-literatura, saiakera

Gero, artritisa, psoriasia, **esklerosi anizkuna** eta beste gaitz autoimmune batzuk BPD (BenzoPorphyrin Derivative) izeneko bigarren belaunaldiko botika fotodinamikoekin tratatzeko ikerketa-programa bati ekin zion Julia Levyk. ETC-entziklopedia

Gizakiaren immunitate sistemak behar bezala funtzionatzen ez duenean eritasun auto-immune batzuk sendatzeko modua ere ikertu du, adibidez diabetesa, **esklerosi anizkuna**, etab. ETC-entziklopedia

---

anizkunki *iz* anizkuna dena.

Izatea jadanik emana da horren bitartez, baina nik hura determinatu beharko nukeen era, h.d., berari dagokion **anizkunkia** nigan ezartzeko era oraindik ez. Ibon Uribarri

---

anizkuntasun *iz* anizkun izatearen nolakotasuna.

Berehala ulertu zuen mundu honetako gauzen **anizkuntasuna**, eta ideienganantz saiatzearen alferrikakotasuna. Juan Garzia

Sintesiaz, ordea, bere esanahi orokorrenean, hainbat errepresentazio elkarri eransteko eta beren **anizkuntasuna** ezagutza batean biltzeko ekintza ulertzen dut. Ibon Uribarri

---

aniztar *izlag/iz* Anizkoa, Anitzi dagokiona; Anizko biztanlea.

Emakumezkoetan Maika Ariztegi itturendarrak 9 plaza eta erdi eta 4,9 metro egin zituen eta gizonezkoetan Andoni Irigoien **aniztarrak** 16 plaza. Berria - Kirola

---

aniztasun 1 *iz* anitz izateko nolakotasuna.

Indiako geltokietara joateak liluramen berezia du Bai tren eta bai autobus-geltokiek Indiaren **aniztasuna** eta miragarritasuna erakusten dute. Gotzon Garate

Amurizak oinen **aniztasuna** jarri zuen gure esku, eta oinen **aniztasuna** jartzearekin, esateko aukerak askeagotu zizkigun. Andoni Egaña

Inozoak bezala sinetsita geunden kultura eta gizarteko aurpegi ezberdinen **aniztasuna** nahiago izanen zutela egun horretan askatasuna aldarrikatuz, eskubideen defentsan faxismoari aurre egiteko. Hasier Etxeberria

Ez harri beraz **aniztasun** gaitza baldin badugu begien aitzinean koloreen aldetik eta lurraldea ñabarra bada. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hala ere, noumenoen aurkikuntzak eta agertarazpenak aukera zabala ematen dute, Lewisek "pentsamendu filosofikoaren **aniztasun** eta aztoramen amaigabea" deitzen duenerako. Xabier Olarra

Beste edozein egunetan harrigarri egingo balitzaio ere hangoxe kolore-**aniztasuna**, halako egunean, printzesa aurrez aurre ikusi ondorengoan, ez zitzaion deigarri egin. Felipe Juaristi

Mendeak igaro dira, baina gizakien izaera anitzak bere **aniztasunean** dirau. Jokin Urain

Aniztasun hau garai guztietan izan da, eta beti izango da, ziurrenik. Juan Martin Elexpuru

2 *kultura aniztasun* *(orobat **kultur aniztasun**)*

Are eta kontu handiagoz, kontuan harturik **kultura-aniztasuna** arrisku larrian dagoela gaur egun, industria-zibilizazioak ezarritako ereduaren mehatxupean. Juan Garzia

Bertan, hizkuntzak «kultura nortasunaren» adierazle nagusiak direla esaten da, eta hizkuntza eta **kultura aniztasuna** «herritar guztien altxorra» dela. Berria - Euskal Herria

Eta, eranskin honetan presiding writer izan dudan Ernst Gellnerrek dioen bezala, nahi nazionalistak nekez betetzen dira **kultur aniztasuna** handia den lekuetan. Bernardo

Atxaga

3 *alderdi aniztasun*

Aurtengo hauteskundeetan Naderrek parte hartzea komeni zaielako, errepublikanoak **alderdi aniztasunaren** alde daude, baina aurten bakarrik. Berria - Mundua

4 *balio aniztasun*

Eta "min handia hartu zuen bere bihotzean" hitzak hirugarren adieraren arabera ulertarazteko, honela aditu beharko lirateke: 'gizakiak Jainkoak beregana zuen nahiaren aurka egin zuela', nahia erel-b 'bihotza' hitzaren bidez adierazten baita, berba horren **balio aniztasunari** buruz azalduko dugunez. Xabier Kintana

5 *enplegu aniztasun* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Adibidez, enplegu bat goizez eta beste bat arratsaldez. Horri **enplegu-aniztasuna** deitzen zaio. ETC-entziklopedia

Kubako errealitatea, ordea, dirudien baino konplexuagoa eta gaitzagoa da: familia bidalketak, **enplegu aniztasuna**, ekonomia paraleloa... ETC-prentsa

Azkenik, arbuiatu egiten ditugu **enplegu aniztasuna** eta aparteko lanorduak; zuzen banatu ditzagun lana eta aberastasuna. ETC-prentsa

Enplegu aniztasun egoeran zeuden irakasleen egoera ere normalizatu egin da. ETC-prentsa

Horri beste bi elementu gehitu behar zaizkio: 1960ko hamarkadan ezarri ziren **enplegu aniztasuna** eta ordu estrak, eta 1990eko hamarkadan sortutako late night telebista programak. ETC-prentsa

Kontrolik gabeko eta kate gisako azpikontratazioa, lan karga eta erritmo jasangaitza, justifikaziorik gabeko lanaldi partzialeko lana eta horrek dakarren **enplegu aniztasuna**, trebakuntzarik eza, eta inbertsiorik eza segurtasunean eta osasunean. ETC-prentsa

AHPEren 17. artikuluak kotizazio-oinarriari buruzko berezitasun batzuk arautzen ditu **enplegu-aniztasunari** eta lanaldi partzialeko langileei dagokienez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hurrenez hurren, jarduera aniztasunaren eta **enplegu-aniztasunaren** egoerak eratuko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrela ezarritako kotizazio-oinarriaren gehienezkoa berdin aplikatuko da **enplegu-aniztasun** kasuetan ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *tonu-aniztasun*

Baina, Stendhalenean ez bezala, zenbat genero, zenbat bide desberdin, zenbat **tonu-aniztasun** eta alberdaniazko proposamen, Calvinorena bezalako literatur bizitza laburrean! Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ahalik eta aniztasun** (4); **aniztasun biologikoa** (3); **aniztasun biologikoa eta** (3); **aniztasun biologikoari** (3); **aniztasun biologikoari buruzko** (3); **aniztasun eta desberdintasun** (7); **aniztasun eta desberdintasunaren** (3); **aniztasun handi** (3); **aniztasun handienarekin** (3); **aniztasun handiko** (4); **aniztasun hori** (14); **aniztasun horrek** (5); **aniztasun horren** (5); **aniztasun horretatik** (3); **aniztasun horri** (3); **aniztasun kulturala** (4); **aniztasun politiko** (5); **aniztasun politikoa** (5); **aniztasun politikoaren** (5); **aniztasun zabala** (3); **kultur aniztasun** (3)
>
> **aniztasuna aintzat** (6); **aniztasuna aintzat hartuta** (3); **aniztasuna bermatu** (3); **aniztasuna bermatzea** (5); **aniztasuna bermatzeko** (3); **aniztasuna bermatzen** (3); **aniztasuna ekarri** (3); **aniztasuna errespetatu** (3); **aniztasuna errespetatzea** (3); **aniztasuna errespetatzeko** (6); **aniztasuna errespetatzen** (3); **aniztasuna funtsezkoa** (3); **aniztasuna gauza** (3); **aniztasuna islatuko** (3); **aniztasuna izan** (5); **aniztasuna kontuan** (4); **aniztasuna nabarmendu** (3); **aniztasuna oinarri** (3); **aniztasuna onartzeko** (7); **aniztasuna onartzen** (8); **aniztasuna onartzen ez** (3); **aniztasuna ukatzen** (4); **aniztasuna ukatzen du** (3); **erlijio aniztasuna** (4); **estatuaren nazio aniztasuna** (4); **euskal gizartearen aniztasuna** (8); **euskal herriaren aniztasuna** (3); **gizarte aniztasuna** (3); **gizartearen aniztasuna** (13); **herriaren aniztasuna** (3); **hizkuntz aniztasuna** (12); **hizkuntza aniztasuna** (17); **hizkuntza aniztasuna onartzen** (3); **kultur aniztasuna** (52); **kultur aniztasuna errespetatzeko** (3); **kultur aniztasuna eta** (6); **kultura aniztasuna** (10); **nafarroaren aniztasuna** (3); **nazio aniztasuna** (8); **nazio aniztasuna onartzeko** (3); **politikoen aniztasuna** (3)
>
> **hizkuntza aniztasunak** (3)
>
> **aniztasunaren alde** (7); **aniztasunaren aldeko** (8); **aniztasunaren aurkako** (3); **aniztasunaren defentsa** (4); **aniztasunaren errespetua** (9); **aniztasunaren errespetuan** (3); **aniztasunaren garaia** (3); **aniztasunaren isla** (8); **aniztasunaren isla da** (4); **aniztasunaren onarpena** (3); **gizartearen aniztasunaren** (3); **hizkuntz aniztasunaren** (4); **hizkuntza aniztasunaren** (7); **kultur aniztasunaren** (20); **kultur aniztasunaren alde** (3); **kultura aniztasunaren** (3)
>
> **aniztasunari buruz** (9); **kultura aniztasunari buruz** (3)
>
> **aniztasunean eta** (3); **aniztasunean oinarritutako** (7); **bere aniztasunean** (6); **beren aniztasunean** (3); **kultur aniztasunean** (5)
>
> **aniztasunik gabea** (3)

---

aniztu, anitz/aniztu, anizten da/du *ad* askotu, ugaldu.

Hanbatenaz **aniztu** ditu nireganako adeiak, amoltsutasuna, begirunea, non ez baitezaket gehiago paira. Jon Muñoz

Erreka zulotik aldendu ahala soilduz joan da oihana eta **aniztuz** soinuak. Pello Lizarralde

Sukarraldi tekniko hartan eroetxetik alde egindako txoroa ematen zuen osabak, berritasunak liluraturiko aura, nik inportazioen **anizte** lanetan jarduten nuelarik kaietan. Bego Montorio

Museo bat du Madame Beylek bere hiru pisuko jauregitxoan, oso gaztetatik nekez, diruz eta ilusioz batu, bildu, irun eta **aniztu** duen bildumarekin gainezkatutako museo paregabea. Anjel Lertxundi

Elementu berekin, unitate berekin, infinituraino **aniztu** eta desberdindu da mundu bizia eboluzioan zehar. Juan Garzia

---

aniztun 1 *izond* anitz duena; askotarikoa. ik **balioaniztun**; **eleaniztun**; **koloreaniztun**; **nazioaniztun**.

Eta oso modu berezian betetzen ditu gainera: horretarako dago eta gainera, askotan, produkzio hori alde **aniztuna** da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Era horretan lortuko dugu etorkizuneko gizarte kultur **aniztuna**. Berria - Gaiak

2 *unitate aniztun elektriko* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Unitate aniztun elektriko edo EMU bat (ingelesezko "Electric multiple unit" sigletatik) tren unitate mota bat da, kotxe autopropultsatuz osatua eta indar eragiletzat elektrizitatea duena. ETC-entziklopedia

---

anjelus ik **angelus**.

---

ankai *iz* begia.

-Kobazuloan gordeko zaitut... -erantzun dit, zin egin dit, **ankaiak** malkotan. Koldo Izagirre

---

anker 1 *izond* norbait sufritzen ikustean edo norbaiti sufriaraztean gupidarik sentitzen ez duena edo atsegin hartzen duena. ik **krudel**; **odolgiro**.

Bai, badakit bihozkabea eta **ankerra** izan nintzela, baina gisa hartan banuen beste egun batzuetan bizitzekoa. Patxi Zubizarreta

Ia segurutzat jo daiteke hiltzaile **anker** horrek ezin izan duela gure mugetatik haraindi ihes egin. Jon Muñoz

Aita Jainko **anker** batek bere seme bakarra gizonek hil zezaten Lurrera nola bidali zuen kontatzen zuen istorioa. J.M. Olaizola "Txiliku"

"Hori, multarik ez bada -bukatu zuen ugazaba **ankerrak**. Bernardo Atxaga

Ohar zaitezte, adiskideak, zeinen **anker** jokatu zuen Jaungoikoak nirekin. Matías Múgica

Tira, isil ditzadan gordinkeria horiek, ez nadin **ankerra** izan. Xabier Mendiguren Elizegi

Zakurren jabe **ankerrak**, ordea, zapuztu dituztenak, beren etxeetan lasai geldituko dira. Gotzon Garate

Elizan, adi-adi begiratu ohi nion Jesus gurutziltzatuari, halaxe ageri baitzuen hango beira-leiho koloretakoak, eta errukia ematen zidan, konturatzen bainintzen zein **ankerra** zen eta zein minbera gertatu behar zitzaion. Mirentxu Larrañaga

2 *izond* tratuaz, egoerez eta kidekoez mintzatuz, jasanezina delako, gizakiari edo animaliei ez dagokiena. ik**gizagabe**.

Animalien aurkako sukaldaritza ohitura **anker** bezain matxista honen aurka jo zuen argi eta garbi aldizkari hark. Joxan Elosegi

36an, gerra **anker** haren hasieran Malpicako hogeita sei marinelek hiru ontzitan egin zuten ihes, Galiziako ur hauetatik Frantziara. Paddy Rekalde

Horretan ezer **ankerrik** ez da. Josu Zabaleta

Ez dira inondik ere huskeriak, baina bai gaitz erdi beste toki askotako errepresalia **ankerren** aldean. Xabier Mendiguren Elizegi

Bestalde, eta beharbada logika **anker** berari jarraikiz, laban-ahoa deitu ohi zaio labanaren alderik zorrotzenari. Iñigo Aranbarri

Eta gauzak zeuden moduan, hura lortzeko bizkor ez ezik, erne ere ibili beharko zuen, hiltzailea berriketa gutxirekin baitzebilen, zeregin **ankerrari** gustua harturik nonbait. Migel Angel Mintegi

Eufemismo **ankerrena** erabiliz hirugarren mundua deritzogun horretan gizakien bihotza gurea baino sentiberagoa delako ustea, baliteke ustela izatea. Edorta Jimenez

3 (adizlagun gisa)

Baina Joek **ankerregi** borrokatzen zuen gazteago eta beldurtiago ginenon gusturako. Irene Aldasoro

Patuak **anker** jokatzen du Dembarekin, eskuak lotzen dizkio etengabe eta irrikatzen duena lortzen galarazten dio. Berria - Kultura

Faxistek **ankerrago** jokatzen zuten beti, garbi geratu behar zitzaion. Lutxo Egia

Patuak tsarraren mandataria eta Ivan Ogareff aurrez aurre ipiniz gero, honek inondik ere ezagutu egingo zuen harengan Ixin-go posta etxean hain **anker** tratatu zuen bidaztia. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

anker eta basati (2); **anker eta odolzale** (2); **anker jokatu** (4); **arras anker** (2); **barre anker** (3); **era anker** (2); **garai anker** (2); **gerra anker** (5); **gizon anker** (6); **hain anker** (7); **hozkada anker batez** (2); **mundu anker** (2); **pertsona anker** (2); **piztia anker** (3); **politika anker** (2); **proposamen anker** (2); **zeinen anker** (2); **zigor anker** (3)

---

ankerkeria *iz* ankerraren nolakotasuna; ankerraren egitea.

Otsoak bortizkeria itsua, **ankerkeria**, odol-zalekeria eta, oro har, gaizkia ordezkatzen du; baina baita indarra, ausardia, askatasuna -hezigaiztasuna- eta gizakiok miresten ditugun beste dohain asko ere. Martin Anso

Gure herria bizirik mantentzeko egin dugu; kartzeleroen makilaz larrututako gure herria eta gure sabel hutsak etsaiaren **ankerkeriaren** isla izan daitezen. Berria - Euskal Herria

O, ez, arren, esan nion, ikusirik ahal zuen **ankerkeria** guztia nire gorputz ahulean, nire buruan zehazki, erabiltzeko prest zegoela. Jon Alonso

Orduko bizipenak oinarritzat hartuta, Three Soldiers (1921) eleberri bakezale garratza plazaratu zuen, errealitate haren **ankerkeriarekin** topo egiteak sortarazi zion asalduraren adierazle. Lopez de Arana

Artea da **ankerkeriaren** aurkako salbazio bakarra. Berria - Kultura

Kezka politikoa, sentiberatasun soziala, **ankerkeria** batzuen ezagutza, munduan dagoen saminaren negar-zotina iritsia zen ordurako nire belarritara. Pako Aristi

Halakoa zen umeok tirokatu zituztenen **ankerkeria**... Pako Aristi

The Times-ek gogor salatu zuen Alemaniako hegazkinen **ankerkeria**. Lutxo Egia

Odol beroa edan nezake oraintxe, eta halako **ankerkeriak** egin, non eguna ikaran jarriko bailitzateke so egitean. Juan Garzia

Baina gaiztakeria hark, izu handi batekin batera zetorren **ankerkeriak**, ez zuen tankera zehatzik hartu Egutxiren gogoan. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

alferriko ankerkeria (2); **ankerkeria da** (3); **ankerkeria erakusten** (2); **ankerkeria hauek** (2); **ankerkeria hori** (2); **ankerkeria izugarria** (2); **ankerkeria zela** (2); **bere ankerkeria** (2); **eginiko ankerkeria** (2); **muturreko ankerkeria** (2); **zein ankerkeria** (2)

ankerkeriaz egin (3); **ankerkeriaz egin izana** (2); **ankerkeriaz egindako** (4); **ankerkeriaz jokatzen** (2); **azpikeriaz eta ankerkeriaz** (3)

ankerkerien aurrean (2)

---

ankerki *adlag* ankertasunez.

Ankerki sakrifikatzen zituzten haurrak eta oturuntzak egiten giza haragi eta odolez; ezkutuko erlijio-elkarteetako partaide haiek. Elizen arteko biblia

Adierazi berri ditugun printzipioak **ankerki** bortxatu zituzten espainiarrek. Iñaki Iñurrieta

Nahiago ametsa gauzatu ezinaren tristezia, **ankerki** irabazitako espejismoa baino. Hasier Etxeberria

Haren jirabueltan kiribiltzen zen, estu-estu, **ankerki**. Karlos Linazasoro

Baina zure ezpal berekoa zen haurra: gauez **ankerki** joan da nigandik, bidaia egitera, nitaz ahaztu eta sekula ez itzultzeko. Eduardo Matauko

---

ankertasun *iz* ankerra denaren nolakotasuna. ik **ankerkeria**.

Bere kontra estutzen zuen orain, min eman nahian, umeen **ankertasunarekin**. Karlos Zabala

Denetariko iritziak zeuden: batzuek ezinbestekotzat jotzen zuten armadaren neurriz gaindiko **ankertasuna** eta gogortasuna, eta sutsuki agertzen ziren horren alde; beste batzuek, ordea, samurtasuna nahiago zuten. Jose Morales

Zegoen baino mozkorragoaren itxura egitera jolasten zen, eta esajerazio hori **ankertasuna** zen eta burla. Juan Garzia

Hereseen **ankertasunaren** biktima gisa sakrifikatu zuen bere burua Fedearen alde, bizitza heriotzarako bidetzat hartu eta martirioa dastatzeko prestatzen saiatu denaren antzera. Jon Alonso

---

ankertopia *iz* ankertasunezko utopia.

"Manexak" oinazezko utopia bat da, **ankertopia** bat, maitasun beroenaz luzaroen nahi izan eta borrokatutakoa, nola bilakatzen den hondamendi erakusten duena, zuberotarren ihesa kontatzen baitu, gerra batez Euskal Herriaren independentzia lortu ostean. Markos Zapiain

---

ankertu, ankertu, ankertzen da *ad* anker bihurtu.

Oinaze-eragileak **ankertzen** doazen heinean, gizonen arimak ere gogortu egiten dira, isurkinak eta beren baitako gauzak nibel berean jartzen diren moduan. Juan Martin Elexpuru

Espetxe egoera zinez **ankertu** da azken urteotan. Berria - Harian

Beste ariketa batzuk ere egiten dituzte, hala nola itsumen eta gortasuneko ariketa, eskeko ariketa, barau ariketa, **ankertzeko** ariketa, isiltasun ariketa, geldirik irauteko ariketa... Pablo Sastre

---

ankila *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* aingura.

Ahaleginik egin gabe, garai bateko irudi eta ahots zurrunbilo bat ekarri zuen gogora: gurasoak, auzokoak, ikaskideak. baita lehenengo mutil-laguna ere, marinel xumea bera, eskuineko besoan **ankila** urdin arlote bat pintatua zuena. ETC-literatura, saiakera

Ankilak aldendu, bengai barik, ez dugu taketa lako adikunerik gura berbabideetan. ETC-prentsa

---

ankilatu, ankila(tu), ankilatzen da *ad* ainguratu.

Eskumako eszenategian hirugarreneko txandan jokatu behar zuen Joseluk bere lehenengo borroka, eta ibai ertzean **ankilatutako** ontzi handi batetik ari zen begira, artilezko txabusinak ematen zion babesari larregizkoa eritzita. Josu Landa

---

ankilosante **1** *izond* ankilosatzen duena. ik **ankilosatzaile**.

Halakoa da dagoeneko aipatua dugun eritasun baten kasua, espondilartritis **ankilosantearena** Juan Garzia

2 ***espondilitis ankilosante*** *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Espondilitis ankilosatzaile edo Espondilitis **ankilosante** gaixotasunaren kasuan (non bizkarrezurreko ornoak ankilosatzen diren, bizkarrezurraren mugiezintasuna gertatuz) mina alde lunbarrean kokatzen da. ETC-entziklopedia

Sendagai biologikoekin terapia egin eta artritis erreumatoide, atritis psoriasiko edo **espondilitis ankilosante** gaixotasunak pairatzen dituzten agureek arrisku kardiobaskular, infekzio larri edo, orokorrean, okerragotzeak pairatzeko probabilitate handiagoa dute. ETC-entziklopedia

Ohikoak dira "eskiatzailearen jarrera" **Espondilitis Ankilosante** aurreratuan, "zaharraren" kurbatzea Paget-en gaixotasunean eta abarretan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kolitis ultzeraduna, **espondilitis ankilosantea** eta bi aldeetako saroileitisa dauzka. ETC-prentsa

Pello Zubiriak **espondilitis ankilosantea** du, Arruartek eta Codok duten gaixotasun bera. ETC-prentsa

Begiei eragiten dien uveitis akutua du, baita ere espondilortropia eta **espondilitis ankilosantea**. ETC-prentsa

---

ankilosatu, ankilosa, ankilosatzen da *ad* paralizatu; garapenean aurrera egin gabe gelditu.

Hau da, sortzen baduzu, edo **ankilosatu** egiten zara edo imitatu egiten duzu. Berria - Euskal Herria

---

ankilosatzaile *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi; soilik **espondilitis ankilosatzaile** hitz elkartuetan erabiltzen da)*.

1 ***espondilitis ankilosatzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Espondilitis ankilosatzailea (ingelesezko AS laburduraz ezaguna) bizkarrezurrari eragiten dion gaixotasun kronikoa da. ETC-prentsa

Eri dauden presoetako bat da Codo -**espondilitis ankilosatzailea** du-, 22 urteko zigorra ari da betetzen, eta Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiak jakinarazi du Castelloko Tratamendu Batzordeak joan den irailean proposatu zuela Codo Euskal Herritik gertuago dagoen espetxe batera ekartzea. ETC-prentsa

Duela zortzi bat urte diagnostikatu zioten **espondilitis ankilosatzailea**. ETC-prentsa

Espondilitis ankilosatzaile edo ankilosante gaixotasunaren kasuan (non bizkarrezurreko ornoak ankilosatzen diren, bizkarrezurraren mugiezintasuna gertatuz) mina alde lunbarrean kokatzen da. ETC-entziklopedia

---

anoa *(orobat **anhoa** g.er.)* **1** *iz* denbora bitarte jakin baterako janari kopurua.

Anoak -ohi baino ogi puska handiagoa, margarina zati bikoitza eta beste gauza bat, Wurst zeritzon zerbaiten zati bat, kanpotik gure saltxitxen antz apur bat zeukana- banatu zizkiguten nasan eta jan ere han bertan jan nituen berehala. Urtzi Urrutikoetxea

Gero, berriz, **anoak** urritu zizkiguten. Anjel Lertxundi

Nire **anoaren** zati bat Bepentzat gorde behar da. Josu Zabaleta

Esan liteke Pariseko funtzionarioek Senako bazterretan egiten zituzten erromerietan esku-soinua zutela beti aldamenean, janarien **anoa** bezain garrantzizko. Koldo Izagirre

Eskola, ospitale, fabrika eta horrelako komunitateetan egun luxuzko lunchetan edo hegazkinetan bezala banatuko da janaria: aurkezpen polita, **anoa** txikiak, baxera abangoardistan, aseptikotasunerainoko higienea hamaika bilgarritan babestua, nutrizio aldetik perfektuki orekatua. Edorta Agirre

Jendearen artean ez dago moral onik; jende guztia goseak dago, asteko **anoa** bi egunetarako ere ez da aski. Josu Zabaleta

Kilo laurden bateko **anoa** jango duzu egunero, ordu jakinetan. Elizen arteko biblia

Eguneko **anoak** eta sukaldaritza Zeitzekoaren antzekoak ziren. Urtzi Urrutikoetxea

Kilo laurden bateko **anoa** jango duzu egunero, ordu jakinetan. Elizen arteko biblia

Poltsa batean zituen bere ondasun preziatuenak: bi pasaporteak, aldatzeko beste galtza-pare lehor bat, eta eguneroko **anoa** eskasetik gordeta etxean zituzten janari apurrak (ogi-kozkor lehorrak eta arrain ketu pixka bat). J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (hitz elkartuetan)

Mallabiko karreristak helmugarako 100 kilometro falta zirela, **anoa** postuan hain zuzen, esan zion taldeko zuzendariari ezin zuela lasterketan jarraitu. Berria - Kirola

Anoa tokira iritsi dira iheslariak, tropela ere bai atzetik, hartu dituzte jan beharrekoak, baina aurtengo Tourrean podiumean izateko hautagai zenak ezetz, ez duela aurrera egingo. Berria - Kirola

Gelaren eguneroko ordena akatsgabea, zoruaren garbiketa kirten bati lotutako moltso umelarekin, eguneroko ikatz-hornidura eta berogailua, **anoa**-banaketa eta koilaren eta plateren garbiketa. Urtzi Urrutikoetxea

Anoa-murrizketazko eta merkatu beltzezko garai hartan, ez zen han goian hornidura-arazorik: nola, inork ez genekien, baina denok genuen denetik. Juan Garzia

Darfurren bizi diren 3,2 milioi herritarrek janari **anoa** txikiagoak jasoko dituzte maiatzetik aurreta. Berria - Mundua

Garrantzitsua da halaber janari-**anoa** denboran ondo banatzea -zerbait egon ala ez. Urtzi Urrutikoetxea

Goizetan kafea, zopa eguerdirako, ogi-**anoa** herena edo laurdena zen. Urtzi Urrutikoetxea

Begi aurrean, eta ahotik oso hurbil, garagar-**anoa** ederra paratu zioten. Jon Alonso

Aizkoraren gainean egin zuen zin eta zegokion galleta eta ron **anoa** izendatu zioten, etorkizuneko harrapakinen bere partearekin batera. Juan Garzia

Arropa, azukre, keroseno eta olio **anoak** handitu egin behar dira. Patxi Zubizarreta

Pippinek Laugarren Araua hautsi zuen, biharamuneko egur **anoa** gehiena sutan jarriz. Agustin Otsoa

3 irud/hed

Georg Tabori dramaturgoak esan zidan behin: aforismo bakoitzean, eta edozein txistetan ere, tragedia **anoa** bat dago. Berria - Kultura

4 ***anoa gune*** *(corpusean ez dago; ETCn **79** agerraldi)* ik **hornidura gune**.

Zazpi **anoa gune** izango dituzte lasterkariek bidean, eta antolatzaileek ehun laguneko muga jarri dute. ETC-prentsa

Aldaketa horrek Lekunberriko **anoa guneari** eragingo dio: herriko plazan jarriko dute, pilotalekuan jarri beharrean. ETC-prentsa

Mendira beharrezkoa gainean eramateko filosofia indartze aldera, jaki batzuk kendu ditugu **anoa guneetan**, eta horrek hainbat gorabehera sortu ditu. ETC-prentsa

4 ***anoa postu*** ik **hornidura postu**.

Mallabiko karreristak helmugarako 100 kilometro falta zirela, **anoa postuan** hain zuzen, esan zion taldeko zuzendariari ezin zuela lasterketan jarraitu. Berria - Kirola

---

anoatu *iz* anoak egin.

[...] Behartsuaren sabel gosetua, deus utzi aitzin lehertua, jakiak **anoatzeko** unerik egokiena, zer **anoatu** dagoenean izaten da, bukatu zuen. Jon Alonso

---

anobulatorio *izond* obulutegiak obuluak sor ditzan eragozten duen farmakoa.

Horregatik esaten da pilula **anobulatorioa** dela; obulazioa galarazten duelako, hain zuzen. Luis Elberdin

---

anodiko *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi) izond* anodoari dagokiona.

Oxidazioa gertatzen den guneari anodo esaten zaio; oxidazioari, batzuetan, erreakzio **anodiko** esaten zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Voltmetriaren beste aplikazioetako bat traza-mailan dauden metalen aldibereko analisia da, birdisolbatze-voltmetria **anodikoa** eta birdisolbatze-voltmetria katodikoa moldaketak erabilita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste bideak hauspeakina eratzea ekiditen du eta zuzenagoa ere bada: kloro likidoaren oxidazio **anodikoa** burutu behar da, platinozko elektrodo batean. ETC-entziklopedia

1886an, Eugen Goldstein-ek izpi **anodikoak** aurkitu zituen, eta ondorioztau zuen gasetatik sortutako karga positibodun partikulak (ioiak) zirela. [...] Hori frogatzeko, atomoaren kargaren eta masaren arteko proportzioa kalkulatu zuen izpi **anodikoez** baliatuz. Proportzio horren balioa izpi **anodikoen** hodian sarturiko gas motaren araberakoa zen. ETC-entziklopedia

---

anodino *izond* interesik, orijinaltasunik edo garrantzirik ez duena.

Idazle eta zutabegile milizia antolatu batek, dudak, kritikak edo soilik ohar **anodinoek** betetzeko xedea lukeen zirrikituak oro tapatzen ditu, gure bi eskaera hauei erantzunik ematen ez duten artikuluak biderkatuz. Berria - Kultura

Bidaia horretarik landa, bere alabaren partetik, urtatseko hitz **anodinoetaz** besterik ez zuen ukan Maienak. Itxaro Borda

---

anodo *iz* bateria, gas hodi eta kidekoetan, korrontea sartzen den buru edo elektrodoa.

Hari-buruetatik burbuilatxozko prozesio bat irteten zen: ongi begiraturik, aise ikus zitekeen nola **anodotik** jaregiten zena halako bi jaregiten zen gasetan katodotik, gutxi gora-behera. Juan Garzia

Teoriaren balaku gozoan, katodoaren potoa ia beterik zegoen gasez; **anodoarena**, berriz, erdiraino. Juan Garzia

---

anoetar *izlag/izond* Anoetakoa, anoetari dagokiona.

Zuzendari ukan behar luketelarik Abraham Olano **anoetar** txirrindulari ohia. Herria

Maider Mendizabal **anoetarra** ez dute bi sosetan saltzekoa Asteazuko pilotari haur eta gaztek. Herria

---

anofele *iz* paludismoa transmititzen duen eltxoa.

Anofele izeneko eltxo baten bidez zabaltzen da, "oso erraz", batez ere osasun zerbitzu txarrak dituzten lekuetan, edo jende pilaketa handiko lekuetan. Berria - Gaiak

Anofele eltxoaren kasuan gauza bera gertatzen da. Berria - Gaiak

Malaria horrelako eltxo batek kutsatzen du, **anofele** deritzan eme batek, lehe-nago malaria duenen bat ziztatu, odola atera eta gero zuri ezten samina sartuta. Gotzon Garate

---

anoki *iz*

Irakasle batzuk erkinduak daude eskatzen zaienari, euskara ikasteari lehenik eta euskaraz irakasteari bigarrenik alegia, ezin diotelako erantzun, kontu hau **anokia** nahiko estua duen jertse bat burutik beheiti sartzea bezalatsu baitzaie. Pello Salaburu

Tulezko lepo-**anokiaren** ertzak kontu handiz desordenaturik ageri zituen, eta lore gorrizko sorta handi bat zeukan paparrean zurtoinez gora itsatsirik. Irene Aldasoro

---

anomalia **1** *iz* normala edo ohikoa denarekiko desbideratze edo makurdura.

Bi mutanteon kasuan, hain zuzen, organo bat hura espero ez den lekuan agerraraztea zen **anomalia**. Juan Garzia

Bizitza deitzen den izadiaren **anomalia** horrek apetan oinarritua behar du izan, gezurrean beharbada. Josu Zabaleta

Espainian klasikoak diren **anomalia** horietako batengatik, Arkitektura Eskolako patioan zain zeuden ikasle haiek ez ziren gero arkitektoak izatekoak, sendagileak eta farmazialariak izatekoak baino. Josu Zabaleta

Mutazio batek berekin badakar garapenaren **anomalia** bat, euli itxuragabe bat, beldar gaizki eraiki bat agertzea, seinale paper zehatz bat jokatzen duela mutazioak jotako geneak eraikuntzaren urrats batean. Juan Garzia

Orain gertaera hura gehiegikeria ulertezin bat bezala gogoratuko du agian, bere bizitzako **anomalia** bat bezala. Joseba Urteaga

Azken azterketek, berriz, "odoleko **anomaliak**" eta "liseritzeko arazoak" dituela ondorioztatu eta leuzemia izatea ukatu dute. Berria - Mundua

Gizon bat bere **anomalia** guztiekin deskribatuko lukeen liburua japoniar estanpa bat bezalako artelan bat litzateke. Juan Garzia

Klimatologiak mahairatuko dizkion datuak aztertu, hango eta hemengoak erkatu, haizeenak datu termikoekin konpondu, euri-elur nahiz beste prezipitazioenak sailkatu, hezeduraren gorabeherak inongo **anomaliarik** dakarkeen arakatu. Pello Zabala

Inguru horretan aldiro egiten dituzte azterketak, eta Flixetik beherako uraren kontrolerako estazioetan ez dute gaur artean inolako **anomaliarik** sumatu. Berria - Gaiak

Beti izango du lekurik **anomaliaren** batek. Askoren artean

Anomalia baten kontra kixote izan daitekeela; baina arau orokor baten kontra kixote izateak zentzurik ez du. Josu Zabaleta

Berrirakurtze horren arabera, zientzia-ikerketaren joanetorrian **anomaliek** (hots, errealitateak aurkezten dituen erresistentziek) jokatzen duten rol epistemologikoa ahaztu egiten da. Askoren artean

Jessy Park, artista autista bat, eguraldiaren **anomaliekin** eta gauean zeruan gertatzen direnekin obsesionaturik dago. Xabier Olarra

Esperimentu horiek, hasieran, zintzilik gelditu ziren, **anomaliatzat** harturik, eusteko kontzepturik gabe, airean. Xabier Olarra

2 (izenlagunekin)

Neure baitan, eta adiskide kristauekiko harremanetan, beti iritzi nion neure jatorriari, bitxia arren, ia garrantzirik gabeko kontua zela, **anomalia** txiki dibertigarri bat, sudurra oker edo aurpegian orbantxoak izatea bezala edo. Juan Garzia

Unibertsoaren osotasunean ere badira, alde batetik, ugaltzea helburu berezi baterako duten espezie batzuk eta halako erregela bati darraizkionak, beren artean **anomalia** txiki batzuk besterik ageri ez dutenak, nolakotasunari eta zenbatekotasunari dagokienez. Xabier Kintana

Anomalia juridiko-politiko honek arduradunen bat izan beharko du. Berria - Euskal Herria

Denbora tarte ezberdinetan egin beharko lirateke kontrolak, eta araudia ere aldatu egin beharko litzateke, **anomalia** biologikoak zigortu ahal izateko. Berria - Kirola

Gurasoetako batek gaixotasun genetiko hereditario bat duenean edo guraso biak **anomalia** genetiko baten eramaile direnean. Berria - Gaiak

Bestalde, nozio garrantzitsu batez jabearazten gintuzten bi mutanteok: **anomalia** genetiko ohikoenek ez zekarten berekin egitura berririk, ordura arte ezezagunik eratzea. Juan Garzia

Haziaren aldaketa genetiko horren ondorioz, **anomalia** kromosomikoak dituzten enbrioiak sortzen dira. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan)

Sexu heldutasunik ez dutenak, ezaugarri nartzisistak dituztenak, alkoholarekin edo drogekin arazoak dituzten pertsonak edo hormona **anomaliak** dituztenak dira izan ohi dira horiek. Berria - Gaiak

4 ***batezbesteko anomalia*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Batezbesteko anomalia iragan den orbita-periodo baten zatikia da, angelu gisa adierazia; elipsearen ardatza baliatuz angelu bat sortzen duen itxurazko planeta bat ere izan daiteke. ETC-entziklopedia

5 ***Pioneer anomalia*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Pioneer anomalia edo Pioneer efektua, eguzki-sistemaren kanpoaldea bisitatzen duten espazio zunda ezberdinen esperotako ibilbidean ikusitako desbideraketa da, nagusiki Pioneer 10 eta Pioneer 11n. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anomalia bat** (4); **anomalia txiki** (3)

---

anomalo *izond* anomaliaren bat duena.

Garuneko lesioak beste maila bat ezagutarazi zion, tartekoa; bai maila horretan giltzapetu ere bera -V1eko mundu bitxian-, sentiera **anomalo** eta aurrekromatikoaren munduan, nolabait esateko. Xabier Olarra

Kurba leun bat marrazten dute emaitzek, eta animalia handiak txikiak baino eraginkorragoak direla erakusten, baina gizakiei dagozkien emaitzak **anomaloak** dira: pisu bereko lau hankako animalia bati legokiokeen energia-gastua halako bi inguru adierazten dute. Irene Aldasoro

Sistemaren kontrako portaera **anomaloak** atzematen saiatuko gara. Berria - Gaiak

Dena dela, gogoaren analisi horri bi salaketa nagusi egin zaizkio: a) Monismo **anomaloa**: bi mailen arteko bereizketa (banakakoen arteko identitatea eta identitate falta orokorra) funtzionalismoak uste duena baino sakonagoa da; eta, b) Lehen pertsonaren ikuspegia: banakakoen arteko identitateak ez ditu behar bezala jasotzen gogoaren berezko hainbat ezaugarri, besteak beste, qualia eta intentzionalitatea. Askoren artean

---

anomia *iz* afasia mota, gauzakiak izendatzeko edo edo haien izenak ezagutzeko ezintasunean datzana.

Okerrena, arriskutsuena, nolanahi ere, **anomia** da, araurik eza, horrelako paradetan ahulak galtzen baitu beti: osasuna, giza harremana, gizarte kontzientzia, duintasuna, dirua, dena. Edorta Agirre

Hasieran pentsatzen genuen kolore-agnosia edo kolore-**anomia** izango zuela, ausaz. Xabier Olarra

Kolore-**anomia** duten gaixoek, adibidez, koloreak bikain asmatzen dituzte, baina haien izenak izaten dituzte ahaztuak, eta, zalantzaz, aise esango dizute banana bat "urdina" dela. Xabier Olarra

---

anomiko *izond* anomiari dagokiona.

Ez soilik animaliak garai jakin eta mugatuetan jartzen direlako altan, eta gizakiaren maitatzeko ahalmena berriz mugagabea bezain **anomikoa** delako printzipioz, baizik oroz lehen animaliaren desira berehalakoa delako, desiraren eta desiratuaren artean ezin duelako ezer tartekatu, ez bada desira indartsuago bat. Xabier Mendiguren Elizegi

---

anonimato *(orobat **anonimatu**) iz* izengabetasuna, anonimotasuna.

Hitz egin gabe bizi nahi duen jendeak herri hauetatik ihesera jo beharra dauka, hirira, **anonimato** bila! Pako Aristi

Jendearen memorian hiltzaile, **anonimatoa** bilatu behar izan zuten bizirauteko. Pako Aristi

Epaimahaiko kideen argazkirik edo irudirik hartzea debekatu egin zuten, eta **anonimatoa** gordetzea eskatu dutela jakinarazi zuen epaileak. Berria - Harian

Hiri honek eskaintzen duen **anonimatoa** estimatzen du eta hiri multikulturala izateak ematen dizkion erreferentzia anitzak ere bai. Harkaitz Cano

Anonimatoaren *Espazioak* izeneko bere liburu interesgarriaren pasarte batzuk irakurtzen baditugu. Berria - Kultura

Galtzaileak interesatzen zitzaizkion, gailurretik lurraren kontra amildu eta hondatutako gizakiak, bizitzaren irudi direlako, baina berak bertigoa zion gailurrari, arrakastari eta izenari, eta nahiago izan zuen **anonimatoan** babestu. Joxean Agirre

Iturri horrek **anonimatoan** babestuta adierazi duenez, Gurutze Gorriko hainbat langilek Falujatik itzuli behar izan dute, soldadu estatubatuarrek ez dietelako utzi bertan geratzen. Berria - Mundua

Nik lortu nian **anonimatoan** pasatzea. Josu Landa

Erraza zen **anonimatotik** idaztea, eguneroko milaka bidaiarien arteko nahasketan boligrafoa hartu eta zerbait, agian barne nekearen eta artegatasunaren kanporanzko leherketa, edozein iragarkitako neska-mutil ederren ezpainetan jartzea. Iñaki Zabaleta

Eta bizitza eramaten hainbeste lagundu dion emaztea ilunpean geratzen da, **anonimatoan**, bakardadean, isilean. Pako Aristi

-Komunetako bakardadean eta **anonimatoan** pertsona herabetiek ausart sentitzen baitute beren burua. Iñaki Zabaleta

---

anonimatu ik **anonimato**.

---

anonimo **1** *izond* egilea zein den ezagutzen ez dena.

Bi semeen autoetako gurpilak zulatu, pertsona **anonimoek** jarritako lore eta oroigarriak kendu eta odola irudikatzen duen likido gorri batekin bustitako xanpain botila hutsak jarri dituzte denda aurrean. Berria - Euskal Herria

Aita Donostiak neskatxa **anonimo** bati jasotako kantuak bazuen zerbait bitxia. Anjel Lertxundi

Eskultore **anonimo** batek gorputz hartan izuaren arima zizelkatu balu bezala. Joan Mari Irigoien

Beste askotan arras jende **anonimoa** dator, gehiago itzultzen ez direnak. Pako Aristi

Lasterkariak ikusten ziren, matraka kolpeka lurrean errendituak, kopetan behera odola zeriotenak, ukabila gorarik eta aurpegia zapi gorriz gorderik indar errepresiboak mehatxatzen zituzten gazteak, gertatzen zenaz jabetzen ez ziren bizidun **anonimoak**. Itxaro Borda

Eskailerak igo eta jaisten, aurpegi **anonimoak**, berak sekula ezagutuko ez zituenak. Harkaitz Cano

Gure herrira bidali zuten, ile eta ahots **anonimoen** jabeak deskubritzeko gai baldin bazen, obra garrantzitsua argitaratua duen idazle **anonimoaren** nortasuna aise deskubrituko zuela esanez. Joxean Agirre

Honaino komunetako poeta **anonimoei** eskaini nahi izan diegun omenalditxoa. Joxerra Garzia

Espainiako Estatuan intseminazio artifizialari buruz egin den azken ikerketak dio haurdun geratzeko emaile **anonimoen** semen bankuetara joaten diren emakumeen % 10ekez dutela bikotekiderik. Luis Elberdin

Azpian, esku **anonimo** batek letra gorriz idatzita: *è vero!!!* (egia da!!!). Anjel Lertxundi

Behe-mailetako zerrenda amaigabeak osatzen dituzten jokalari gris **anonimo** haietako bat izan zen, bere garaian. Joan Mari Irigoien

Siestatik landa, Dongek sorpresa ona ukan zuen: dei **anonimo** bat. Ramuntxo Etxeberri

Gero gutun **anonimoak** bidaltzen dizkizute irainez beteta, eta berdin zure lagunei ere gero, haiek difamatzen dituzula esanez. Mikel Hernandez Abaitua

Irakurleek zuzendari eta erredaktoreekin harremanetan jartzeko erraztasun gehiago eman; iturri **anonimoen** erabilera murriztu. Iñigo Aranbarri

Edozein elkarte **anonimoren** akzioak bezalaxe, akzio horien salerosketa askea da, eta hala, akzio horiek salerosi ahal izateko kapital merkatu jakin bat antolatzen da. Iñaki Heras

Bazkide-saria ordaindu, eta Batzorde **anonimoari** idatzi nion esanez parte hartuko nuela afarian. Juan Garzia

Arauen sistema bat da, arau **anonimoak**, historikoak, garai jakin bat definitu duten denboran eta espazioan mugatutakoak beti. Xabier Arregi

Honela erakusten zelarik zer hurrean nengoen historiaren subjektu **anonimo** eta orokorra onartzetik. Xabier Arregi

Harri hutsezko horma zahar **anonimo** haiek, ez zizuten izen edo titulu beharrik. Patziku Perurena

Poema zahar **anonimo** horiek ditu nere gogoak bere guzizko, atsegin zahar ilun baten fragmento galduak iduri. Patziku Perurena

Bertso **anonimo** bakar horretan agertzen den indarkeria-giroak ere ez du, antropologiaren ikuspegitik begiraturik, garrantzi gutxiago. Anjel Lertxundi

Iruditzen zitzaidan zinegotziak ulertu behar zuela nire jakin-min hori, nolabait ere bera izan baitzen defuntu **anonimo** hura nire familiaren intimitatean sartu zuena. Ramon Saizarbitoria

Han goian ez zenuke, aberrigabe **anonimo** eta pobre horrek, zertaz arduratu beharrik izango. Joseba Sarrionandia

Aldatuko al litzateke ezer askorik adituren batek frogatuko baligu ez zela Cervantesik izan, Don Quijotea **anonimoa** dela? Anjel Lertxundi

Ez Alkoholzale **Anonimoen** ildotik, goreneko botere batekin fidatuz, baizik eta egiazko erlijioarekin. Oskar Arana

Gela handi eta **anonimo** bat: lau erromes gara bakarrik. Piarres Aintziart

Isiltasun **anonimoa** zen hirian nagusi, ibai baten antzera karrika guztiak hartuak zituen isiltasun zabal eta arrea. Felipe Juaristi

Hotel bateko gelaren kutsu **anonimoa** zerion logela hari. Alberto Ladron Arana

Bakoitzak bereari begiratuko lioke, berea gordetzeari, donazio **anonimoen** aldeko hautua albora utzita. Berria - Gaiak

Eskemok aukera ematen dute deskribatzeko, ez kontzeptuak eraikitzeko barruko legeak, ez euren aurrerakako eta banakako genesia giza espirituan, baizik eta euren sakabanatze **anonimoa** testuetan, liburuetan eta obretan zehar. Xabier Arregi

Hori lan kolektiboa baita eta, beraz, **anonimoa**. Juan Garzia

2 irud/hed

Istripu hori zoritxar **anonimo** bat baizik ez zen komandantearentzat, zerga estatistiko bat balitz bezala edo. Josu Zabaleta

Altzairuzko txakolin, ardo zurezko, eta hondar **anonimoa**. Joxerra Garzia

Erran nahi baita Burokrazia, bazter guztietan sartzera utziz geroz belar gaiztoak bezala hedatzen dena eta maiz izenik gabeko izurrite **anonimoa** bilakatzen, ez gara horrengatik nehoiz aterako boterearen kontzepzio gaiztoenetik. Piarres Xarriton

3 (izen gisa) izkribu anonimoa.

- **Anonimoak** idazten ditudalako. Javi Cillero

Anonimo germaniarra. Patxi Zubizarreta

Bonabenturaren Legenda Luzea, Perugiako **Anonimoa**, Hiru Lagunen Legenda, Perugiako Legenda eta Perfekzio Ispilua. Askoren artean

Harreman estua du Perugiako **Anonimoa**-rekin, hau Hiru Lagunen Legenda-ren iturri baita. Askoren artean

4 ***baltzu anonimo*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Sozietate anonimoa, **baltzu anonimoa**, akziokako baltzua edo akzio konpainia, akzio izeneko partaidetza-tituluetan banaturik duten sozietate kapitalista da. ETC-entziklopedia

Izenpe **baltzu anonimoa** da. ETC-prentsa

Parlamentuan argudiatzen den bezala, kontuan izan behar da Administrazio Publikoek, beren zerbitzuetan, gero eta gehiagotan erabiltzen dituztela formula juridiko pribatuak - hala nola **baltzu anonimoak** -. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baltzu publikoak **baltzu anonimo** gisa konfiguratu behar dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Behin betiko pausoa 19/1989 Legearekin emango zen, eta **baltzu anonimoen** testu bateginarekin, han kontuan egindako idazpena, akzioen (51. eta 60. artikuluak) eta obligazioen (290. artikulua 1. eta ETC-zientzia, zuzenbidea

Baltzu anonimo horren asmoa da Aragoiko mendiek ematen dituzten aukerak erabiltzea, turismoaz baliatuz, erkidegoan garapen handiagoa lortzearren. ETC-entziklopedia

Azkenean, hasieran esandakoaren arabera, ez dugu ahaztu behar ere hainbat kooperatiba mutualitateen edo lan **baltzu anonimoen** legediaren pean eraturik daudela. ETC-entziklopedia

5 ***sozietate anonimo***

Espainiako eta Nafarroako Gobernuek osatutako **sozietate anonimo** honek 130 milioi euro pasatxo ordaindu ditu orain arte ubidea eraikitzeko. Berria - Euskal Herria

Sindikatuak eta ezkerreko alderdiak beldur dira EDF-GDF **Sozietate Anonimo** bihurtuz pribatizazioari atea irekiko zaiola. Berria - Ekonomia

Plan horretan balio kooperatiboen inguruan ere helburu bat jarrita dute: globalizazioaren garaian, nazioartera begira eta nazioartean dago orain taldea eta hainbat filial **sozietate anonimo** gisa ditu. Berria - Harian

EDF Merkatu librean sartzearen eta **sozietate anonimo** bilakatzearen ondorio bat dela emendio hori dio CGTek. Herria

1602an sorturiko Ekialdeko Indietako Holandar Konpainiaren ereduaren gainean eratu ziren, Ingalaterran (ekimen pribatuaz), Frantzian, Danimarkan, Suedian (estatuaren ekimenez) kolonia-konpainiak, akzio bidezko aurreneko **sozietate anonimoak** izan zirenak. Koro Navarro

Bulego-burua Koipe Industriak, **Sozietate Anonimoan**. Anton Garikano

Hala eta guztiz ere, elkarrekin bizi eta lagun onak izan arren, lanari zegokionean nor bere aldetik ibiltzen ginen, gurea ez zen **sozietate anonimo** bat. Migel Angel Mintegi

6 ***sozietate anonimo laboral*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Komunikazio Biziagoak SAL enpresa-egitura hartu zuen, hau da, **Sozietate Anonimo Laborala**. ETC-zientzia, zuzenbidea

o Bat-egite bereziak: lan elkartuko kooperatibak eta **sozietate anonimo laboralak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anonimo baten (11); **dei anonimo bat** (4); **dei anonimo batek** (4); **elkarte anonimo bihurtu** (4); **esku anonimo batek** (5); **gutun anonimo bat** (4); **iturri anonimo** (3); **kluba elkarte anonimo** (3); **sozietate anonimo** (9); **zahar anonimo** (3)

anonimoa dela (3)

anonimoak dira (5); **anonimoak izan** (3); **dei anonimoak** (3)

modu anonimoan (3)

anonimoek jarritako lore (3); pertsona anonimoek jarritako (3)

---

anonimoki *adlag* era anonimoan.

2004ko maiatzean eta ekainean, Renaud van Ruymbeke jujeak **anonimoki** jaso zituen zerrendetan, Luxenburgoko Clearstream finantza enpresako diru kontuko hartzedunetan emana zen Sarkozy. Berria - Mundua

Maariv egunkari israeldarrak galdekatutako Israelgo segurtasun indarretako goi arduradun batek atzo **anonimoki** ziurtatu zuenez, Ariel Sharonen gobernuak erabaki du Hamas eta Jihad Islamikoa erakunde islamistetako burukide politiko eta militarrak "akabatzea". Berria - Mundua

Poema haiek sortu, ez dakit nola sortu nituen, literatura egiten ari nintzela jakinaren gainean ala oharkabean, baina inoiz ez nuen izan inori erakusteko asmorik, ezta amodio haren inspiratzaileari ere, halakorik izan bazen; lotsatiegi nintzen ni horretarako, nik uste **anonimoki** bidaltzea ere ez zitzaidala bururatu. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrela definituta [...] ideien historiak kontuan du gizakien artean **anonimoki** mugitzen den pentsamendu amarrutsu osoa, errepresentazio-joko osoa. Xabier Arregi

Karreteak bidaltzen zituzten erredakziora, **anonimoki** askotan. Alberto Barandiaren

---

anonimotasun *iz* anonimoa denaren nolakotasuna.

Hiri ezezagunaren **anonimotasun** horrek bestelako itxaropideak, aukerak, ametsak piztu zitzakeen zure baitan, nahi gabe ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Jendea gero eta aseago zegoen festaren parafernaliarekin, eta mozorroen **anonimotasuna** baliatzen zuen, adorea hartu, proposamen lizunenak ere eztarria urratu beharrez egin, eta gauari akabera egokiren bat eskaintzeko. Anjel Lertxundi

Taldean babesten dira **anonimotasuna** lortzeko, gazte direla, hazi direla eta boterea dutela erakutsi behar dute. Berria - Euskal Herria

Burmuinetako traumatismo bat daukala, bere geroari buruz ezin dela ezer zehaztu gaineratu du Associated Press agentziari **anonimotasuna** atxiki nahi izan duen Creteileko erietxeko zuzendaritzako batek. Berria - Ekonomia

Gau amaiezinetan korridorean sentitzen diren jaberik gabeko pauso-hots etengabeen **anonimotasuna**. Anjel Lertxundi

Bai berak eta bai nik, eutsi egin behar baikenion nire **anonimotasunaren** jokoari. Juan Garzia

-Hamabost urte egin ditut **anonimotasunaren** gordelekuan, izenik gabeen linboan. Joxean Agirre

Biziaren ankerrak **anonimotasunean** ilundutako heroi akitu honek bere iragan ederraren frogatzat narama sakelan. Koldo Izagirre

Gero, **anonimotasun** osoan, bezeroak elkarteko boluntarioei ematen die poltsa saltegitik ateratzen delarik. Berria - Euskal Herria

Lau osaba, hiru izeba eta hamasei lehengusuren begi-luzeei ezin itzuriz ibiltzea hiritar biziaren **anonimotasun** preziatuaren kontrako atentatua zen niretako. Aingeru Epaltza

---

anontzatu ik **anuntziatu**.

---

anontziatu ik **anuntziatu**.

---

anorak *(orobat **anoraka** g.er.) iz* txaketa kaputxadun itxurako jantzi irazgaitza, eskuarki mendi kiroletan erabiltzen dena.

Jian-ek bere **anorak** bat eta esku-argi bat oparitu zizkidan. Juan Kruz Igerabide

Bi autobus, bata japoniarrena, betaurrekoak eta argazkimakinak, bestea amerikarren **anorak** eta prakekin. Jon Alonso

Leizearen ahotik hiru persona ateratzen dira, laranja koloreko **anorak** eta galtzekin jantzita eta kopetan linterna bana daramatela. Bernardo Atxaga

Auzoko aldapan behera jaitsi nintzen, ia galgari sakatu gabe, nire **anoraka** itsasontzi baten haize-oihala bezala puzten zela. helikopteroaren motor hotsa sentitu eta haien atentzioa lortu genuen **anorakak** astinduz. Juan Kruz Igerabide

T8a armairu zahar baten barnean, arrantzurako xira eta **anorak** zaharren azpian, eta kloratita, txakurren pentsua egoten zen kaxa batean. Hasier Etxeberria

Motxila bizkarrean jarri, eta auzoko neskaren **anorak** gorria jantzi nuen. Jon Maia

Katilua hustu duenean, lotarako erabili duen txandal beraren gainean mahuka gabeko **anoraka** jantzi, eta kortara jaitsi da. Patxi Iturritegi

Uniformerik ez, gaztearen gisako arropa baizik soinean: asteburuko mendizalearen **anoraka**, halabereko botak eta panazko galtza lodiak. Aingeru Epaltza

Zuria, metro laurogei zentimetro, argala zen eta gau hartan galtza beltzekin eta **anoraka** urdinarekin zebilen. Gotzon Garate

Haietako baten **anorakan** zakurraren odol apur bat aurkitu zuten. Gotzon Garate

Gotzonek **anorakaren** poltsikotik galleta pakete bat atera eta eskaini dio. Aingeru Epaltza

---

anoraka ik **anorak**.

---

anorexia 1 *iz* jateko gogo falta ez-ohikoa.

Izan ere, **anorexia** nozitzen ote zuen zurrumurrua bolo-boloka zebilen aspaldi jendartean: "1,84 luze den pertsona batek ezin du 60 kilo eskas pisatu, pertsona hori gaixo dago ezinbestez. Josetxo Azkona

Zoriak egun haietako batean **anorexiaren** aldeko webtoki bat ipini zuen nere begien bistan. Iñaki Segurola

Anorexiaren garaietan bizi gara. Pako Aristi

Diru pila irabazten zuela, **anorexiak** jota zegoela, halako eta holako arropak janzten zituela. Antton Olano

Borreroa, **anorexiak** jotako neskatilekin, bereziki kontuz ibiltzen da; hain iruditzen zaizkio gorputzño horiek hauskorrak eta minberak. Karlos Linazasoro

2 irud/hed

Hizkuntzaren **anorexia** sendatzen du zenbakiak. Karlos Linazasoro

Diskurtsoaren **anorexiari** buruz ari naiz, ideiak uniformizatzeko eta ortodoxiarako joeraz. Iñaki Heras

Niretzat kofesioa halako **anorexia** psikiko bat bilakatua zen, biziaz ez bainuen hazi nahi. Piarres Aintziart

Jakinez gainera, artzainek, haizeek erraztatu zelai goretako aterpeetan gasnak amodioz egiten zituztela, maitasun horren errautsak sabeleratzen genituen **anorexia** linguistikoak jotako kideok. Itxaro Borda

3 ***anorexia mental*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Anorexia mentalaren momentu batean edo bestean jokaera bulimikoak agertzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezagunenak, gure artean, alkoholismoa (edari alkoholdunetako etanola irensteko mendekotasun fisikoa, abstinentzia-sintoma gisa agertzen dena, edaterik ez dagoenean), **anorexia mentala** (an-orexia, apetiturik ez), bulimia (elikagai gehiegi behin eta berriz irentsi eta goitikatzea eta, tarteka, baraualdiak egitea)... ETC-prentsa

Gezurra badirudi ere, sendagai gisa gero eta erabiliagoa da bere hazia, nekeak, gaixotasunek edo **anorexia mentalak** sortutako argaltasun kasuetan, batik bat. ETC-prentsa

4 *anorexia nerbioso* *(corpusean ez dago; ETCn **52** agerraldi)*

Anorexia nerbiosoa elikadura-nahaste bat da, non gaixoek janariari uko egiten dioten eta gorputzaren autopertzepzioaren distortsioagatik gizentzearen beldur obsesiboa izaten duten. ETC-entziklopedia

Psikoterapia eta lore esentzien bidezko terapia erabiltzen dira **anorexia nerbiosoa** sendatzeko. ETC-prentsa

Anorexia nerbiosoa pertsona bat oso gutxi jatera bultzatzen duen gaixotasuna da, eta bulimia, berriz, gehiegi eta oso modu desordenatuan jatera daramana. ETC-prentsa

Elikaduraren trastornoak aztertzen dituen AETCA elkarteko kide den Luis Rojo doktorearen hitzetan, **anorexia nerbiosoa** duten pertsonen profila "neska gazte batena da, 13-14 urtetik 16-17 bitartekoa, adin horretatik aurrera ere kasuak ager daitezkeen arren". ETC-prentsa

Anorexia nerbiosoa histeriarekin lotzen da, gaixotasun femenino bat. ETC-prentsa

Mutilengan eta neskengan sarritasuna berdina da, eta hasierako adina goiztiarragoa izaten da **anorexia nerbiosoaren** kasuan baino. ETC-zientzia, zuzenbidea

Asperger-en nahastea duten batzuek arreta-gabezia eta hiperaktibitate nahastea edo **anorexia nerbiosoa** ere edukitzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *anorexia urduri* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Nabarmendu behar da **anorexia urduria** gaixotasuna dela, eta anorexia, berriz, jangurarik ezaren sintoma. ETC-entziklopedia

Pregorexia: emakume haurdunen **anorexia urduria**. ETC-prentsa

6 *nerbioetako anorexia* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Anorexia hitzak jangurarik eza esan nahi du, askotan eritasun gaixotasun sintomatzat hartzen denean. **Nerbioetako anorexiarekin** nahastu ohi den terminoa da: **nerbioetako anorexia**, ordea, jate nahaste bat da, pisua jaitsarazten duena eta heriotza eragin dezakeena. ETC-entziklopedia

---

anorexiko *izond/iz* anorexiak joa; anorexiak jotako pertsona.

Horrez gain, ezer gutxi ahoratzen nuen, neska **anorexiko** haiek jaten zuten apurraren hondakin ziztrin bat edo beste baino ez. Jon Arretxe

Telefono ondoan zutik geratu zen tarte batean, espazio eta denboratik landa, eskultura greziar **anorexiko** bat iduri. Unai Iturriaga

-Nor da kaskagorri **anorexiko** hori, kolega? Patxi Iturritegi

Manina edo Vanina delako **anorexiko** nazkante hark "Porco Dio" oihuka eman zuen afal aurreko koktel garaia, harik eta esku errukitsu batek piszinara bultzatu zuen arte. Patxi Iturritegi

Eta erdi **anorexikoak**. Joan Mari Irigoien

---

añorgar *izond/izlag* Añorgakoa, Añorgari dagokiona; Añorgako biztanlea.

Logroñoko San Mateotan Unanue **añorgarra** eta Pascual dira ondarrean nausitu, alta 16-17 izanak zirelarik Capellan ausart bat eta Lasa jotzaile batzuen aitzinean. Herria

Jaz, Asier Urdanpilleta **añorgarra** zen nagusitu, bigarren zelarik Alberto Zerain gasteiztarra eta hirugarren Gaizka Itza muxikarra, Pilar Arriola elgoibartarra zelarik emazteetan lehena. Herria

Beñat Gaztelumendi **añorgarrak** jantzi zuen aurtengo txapela, eta bezperan Erniarraitz sarian bigarren egin ondotik arantza kendu zuen. Berria - Kultura

Hain xuxen, hiruak lau hoberenetan atera dira, xapela haatik Beñat Gaztelumendi **añorgarrari** utziz, Xumai Murua aldiz bigarren edo xapeldun-orde. Herria

Bere segurtasunagatik nabarmentzen da **añorgarra**. Berria - Kultura

---

anorgasmia *iz* orgasmo falta.

Sexologian horri koito **anorgasmia** esaten zaio. Luis Elberdin

Koito **anorgasmia** da emakumeak beste modu batzuetan bai baina koitoaren bidez orgasmoa ezin lortzea. Luis Elberdin

Koito **anorgasmia** "arazo psiko-soziala" balitz, datu horiek fenomeno bizkor eta erabat kezkagarria gertatzen ari dela adieraziko lukete. Luis Elberdin

---

anorgasmiko *izond* anorgasmiarena, anorgasmiari dagokiona.

Ez dut inor eskandalizatu nahi, baina, gezurra badirudi ere, gure planeta hau larrutero birtualez eta Xerezade **anorgasmikoz** beteta dago. Patxi Iturritegi

---

añorgatar *izond/izlag* Añorgarra.

Ohikoa den bezala, Hegoaldeko artista bat gonbidatu dute Izuran erakustera eta aurten Iñigo Ormazabal **añorgatar**-zarauztarra izan da koadroak eskegi dituena Iparraldeko herriko aretoko hormetan. Berria - Kultura

---

anormal 1 *izond* normala ez dena.

Entzuten nuen gure amari esplikatzen ziola nik ere, gauero ateratzen banintzen, gizon **anormal** haiek bezala bukatuko nuela. Pello Lizarralde

Ez gara zoriontsuak eta ez gaude triste; ez gara normalak eta ez gara **anormalak**. Iñaki Segurola

Batzuk bere onetik ateratzen dira ni, pertsona autista **anormal** hau, hara azaldu, eta ekipamendu guztiaren diseinua egiteko gauza naizela ikusita. Xabier Olarra

Inguruko ehun osasuntsuak suntsitzen dituzten zelula **anormalak** neurrigabe hazteak eragiten du minbizia. Berria - Gaiak

Horrek esan nahi du herritarren % 5ek duten jokabide sexual bat jokabide **anormala** dela? Luis Elberdin

Ikusle "normala", bere begiradak egiten duen bezala, irudiak zentratuta ikustera ohituta dagoenez, deskoadratzea ezabatzea izaten da joera normala, gauza **anormal** bezala sentitzen baitu, haserregarri izan daitekeen gauza bezala. Josu Zabaleta

Euskararen egoera **anormalak** egiten gaitu **anormal**. Markos Zapiain

Normari jarraitzen ez diona, berriz, **anormala** da. Luis Elberdin

Atzo, ezkondu aurretik harreman sexualak izatea **anormala** zen, eta, gaur egun, erabat normala da. Luis Elberdin

Lehen aldikotz "normal" eta osasuntsu sentitzen ari nintzen unean, berriz ere **"anormal"** izaterat kondenatua; berriz ere exilioan. Jose Angel Irigaray

Zergatik iruditzen ote zaie beren esperientzia hain **anormala**? Xabier Olarra

Ez al duk behin ere pentsatu, **anormalaren** ikuspegitik, normala **anormala** dela eta **anormala** normala...? Joan Mari Irigoien

Inguruko kultura indartsuekin konparatuz ahozkotasunaren garapen ezohiko eta **anormala** (ingurukoen normara makurtzen ez dena) izanagatik, besteren kanon eta orekak kopiatu beharrik ez daukagula ohartzen baikara, haiek hedapen gaitasunari dagokionez gu baino kultura indartsuagoak izan arren. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Izan ere, normal-normala ere ez da etxe partikular batean hilarriak egotea; are **anormalagoa** da hilarri horien azpian hilobiak egotea. Unai Elorriaga

Horrenbestez, ez dago sexualitate normalik eta **anormalik**, osasun sexuala ez baitagokie arau sozialei. Luis Elberdin

Ez gara zoriontsuak eta ez gaude triste; ez gara normalak eta ez gara **anormalak**. Iñaki Segurola

Arauetatik kanpo jokatuz gero, **anormaltzat** hartuko zaituzte. Luis Elberdin

Euskal gizartea heldua da eta beti bezala arituko da, demokratikoki **anormala** den horren aurrean lasaitasunez jokatuz. Berria - Euskal Herria

2 (izen gisa)

Kontua da **anormalik** handienak ere normaltzat edukiko duela bere burua. Jokin Urain

Neska haren familia osoak zuen halako **anormal**-ukitutxo bat. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
anormala da (3); **anormala dela** (5)
anormaltzat jotzen (3)

---

anormalidade *iz* anormaltasuna.

Guk dauzkagun **anormalidade** batzuk oso aberasgarri eta interesgarriak iruditzen zaizkit. Berria - Kultura

---

anormalitate *iz* anormaltasuna.

"Mundu osoak ikusi behar du gurekin egin dutena **anormalitate** demokratikoa dela, ez dela inola onargarria Europa demokratikoaren testuinguruan", gaineratu zuen Torrealdaik. Berria - Harian

---

anormalizazio *iz* anormaltzea.

Eusko Jaurlaritzaren Estatutu berrirako Proposamena ere hizpide izan zuen Enparantzak, eta "beste 25 urterako **anormalizazio** eta gatazka egitasmoa" dela esan zuen. Berria - Euskal Herria

---

anormalkeria *iz* anormaltasun gaitzesgarria.

Bazekien, beraz, bizitza ez-normala eginarazten digutela, eta ez zeukaten argudiorik **anormalkeriak** utz zitzatela eskatzeko, baina bai sakabanaketaren kudeaketan eta aholkularitzan gogotsu aritzeko. Jokin Urain

Itxuraz normalak diren familiak, alegia, Juan Mari Atutxa bera bezalako aita batekin, **anormalkeria** handienak ere normal-normal pentsatzeko eta egiteko. Jokin Urain

"Itxuraz normalak diren familiak" dioenean, berea bezalako familia esan nahi du, noski, Atutxak, eta batere itzuli-mitzulirik gabe esaten du zelako **anormalkeriak** egiten dituzten "itxuraz" berea bezain "normalak diren familia" horiek. Jokin Urain

---

anormalki *adlag* era anormalean.

Arruntasuna eta barbarotasuna artean, desintegratzen ari den zibilizazio baten artearen hedapen **anormalki** zabalagatik eskuarki ordaintzen den prezioa da. Iñaki Mendiguren

Jarraitzen du izaten **anormalki** konkretu, espezifiko eta antzua; ezin da integratu, ez subjektuaren esanahi zabalago batekin, ez ikuspegi sozialarekin. Xabier Olarra

---

anormaltasun *iz* anormala denaren nolakotasuna.

Itxurazko normaltasunaren azpian -diosaletatik eta konplimenduzko irrietatik harat-, lotan baitatza, betiere, beste **anormaltasun** bat, itzartzen denean **anormaltasun** guztiak baino izugarriagoa izan daitekeena. Joan Mari Irigoien

Klima-aldaketa azeleratzen ari dela uste du Lovelockek, eta joan den udarako beroak ez direla **anormaltasuna**, azelerazioaren seinale nabarmena baizik. Berria - Gaiak

Frankismo garaiko "salbuespen egoera" haiek azpimarratzen zutena horixe zen, diktaduraren beraren **anormaltasuna**. Joseba Zulaika

Eta, normaltasuna helburu, norberaren **anormaltasuna** onartzea ezinbestekoa da, kaltegarria bezain barregarria normal itxurak egitea. Markos Zapiain

Anormaltasuna ez onartzea baita normala izan nahi duenaren lehen pausoa. Hasier Etxeberria

Rivne eskualdean jaiotzen diren hiru haurretatik batek **anormaltasunak** ditu, barnekoak gehienetan. Berria - Gaiak

-Lehen **anormaltasunaren** beldurrean bizi izan nintzen bezala, orain normaltasunaren beldur naiz. Joan Mari Irigoien

Baina Woodyk bere **anormaltasunean** normala izatea erabaki duela dirudi. Berria - Kultura

Anormaltasun politikoaren garaiak bizi ditugu: nabarmenak diren gauzek zalaparta sortzen dute. Berria - Euskal Herria

Legealdi hasieran aitortu nuen Batzar Nagusiak **anormaltasunez** sortu zirela eta defizit demokratikoa egon zitekeela. Berria - Euskal Herria

Hirugarrenik, **"anormaltasun** demokratikoa" zuzentzeko behar diren parlamentu-ekimenak eta ekimen legegileak abiatzeko. Berria - Euskal Herria

Anormaltasun kimikoaren hiztegia darabil halako kontuetan: "piztu eta itzaltzen diren zirkuituak", "bide ematen zaien jokabide primitibo, eskuarki inhibituak"-, sindromea nortasunaren zati bihurtu zaiola ere sentitzen du. Xabier Olarra

---

anormaltze *iz* anormal bihurtzea.

Elementu "surrealisten" eta ez ohikoen presentziak helburu garrantzitsu bat betetzen du: gure gizarte kapitalista hiritarraren absurdua azaleratzea; bizitzan normalak iruditzen zaizkigun hainbat kontu eta xehetasun **anormaltzea** alegia. Berria - Kultura

---

anotatu, anota(tu), anotatzen du *ad* notak hartu, oharrak idatzi.

"Hildako" literatura klasiko batetik bizirik iraundako lanak bildu, editatu, **anotatu** eta argitaratzeko zeregin honetan, estatu unibertsal siniko berpiztu bateko Ekialde Urruneko enperadoreak beren lehiakide guztiak baino askoz aurrerago joan ziren. Iñaki Mendiguren

Periodikoen azpian zegoen errepide komarkalen mapa, errotuladore gorriz seinalatua eta puntutik puntura heltzeko behar zen minutu kopurua **anotatua**: [...]. Harkaitz Cano

Alboan beti dauka... kaier beltza, bertan idatzitakoak irakurtzen, irakurri berriak eta gogoetak **anotatzen**. Jose Angel Irigaray

---

anotazio *iz* anotatzea.

Arratsalde batean, latako izokina jan eta kafe beroa hartzen ari ginela, Pablok uhartearen mapa militarra zabaldu zuen dendan, eta **anotazio** batzuk egiten hasi zen iparrorratzaz baliatuz. Bernardo Atxaga

Paretak umeen marrazkiz, postalez, gutunez, afixaz eta **anotazioz** beterik dauzka. Unai Iturriaga

Bigarren **anotazioa** patrikako uztai-koadernotxoan: [...]. Harkaitz Cano

Anotazio berri bat patrikako uztai-koadernotxoan: depresioaren kontrako beste irtenbide bat: astindu zapatak eta oinez ibili, kaleak bukatzen diren arte. Harkaitz Cano

Dirua bankuan sartu duenak ere dirua izango baitu (banku-dirua, alegia, bere aurrezki libretan edo beste finantza-produktu batean agertzen den **anotazio** kontablea: gordailua). Iñaki Heras

---

anoxia *iz* oxigenazio falta, zeluletan, ehunetan edo odolean.

Geure artean egiten genuen ea alde-aldean operazioaren egunetik beretik erakutsitako ikusmeneko gorabehera bitxi haiek ez ote zizkioten, hein batez behintzat, odoleko oxigenoaren gorabeherek eragiten, eta ez ote zion horrek eragiten erretina- eta garun-**anoxia**. Xabier Olarra

---

anoxigeniko *(corpusean ez dago; ETCn **102** agerraldi)* 1 *izond* oxigenorik gabea.

Haren ikerketak bakterio fototrofo **anoxigenikoei** buruzkoak izan dira ia esklusiboki, batik bat muturreko ingurumenetan bizi direnei buruzkoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Anoxigenikoa, zenbait anaerobiok egiten dutena: ez dute oxigenorik askatzen. ETC-entziklopedia

2 *fotosintesi anoxigeniko* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Dagoen beste fotosintesi mota **fotosintesi anoxigeniko** deritzona da: hainbat bakteriok burutzen dute, eta fotosintesi oxigenikoaren aldean ez du oxigenorik sortzen. ETC-entziklopedia

Beste bakterio fototrofo batzuetan, aldiz, ez da O2-rik ekoizten, eta, beraz, prozesuari **fotosintesi anoxigeniko** deritzo. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anoxiko *(corpusean ez dago; ETCn **182** agerraldi)* *izond* anoxiari dagokiona.

Ekainaren 5ean hil zen emakumea, estrangulazioak eragindako entzefalopatia **anoxiko** bat zela eta. ETC-prentsa

Bakterioak oxigenoa duten inguruetan bizi daitezke, baina baita **anoxikoak** (oxigenorik gabeak) diren habitatetan ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Produktu esterilizatuaren tenperatura oso gutxi handitzen da; beraz, kondizio anhidro eta **anoxikoak** ditugunean, erradiazioak beroak baino kalte gutxiago eragiten dio produktuari, baina eraginkortasun hilgarri berberarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hypolimnion-aren behe-parteko O2-aren kontsumoa eragiten du, eta, ondorioz, baldintza **anoxikoak** ezartzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste kasu askotan, landareak baldintza ia **anoxikoetan** funtzionatzen dute hartzidura mota batzuen bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Potentzial negatiboak dituzten itsasadarrak ingurune **anoxikoak** direla adierazten dute, eta askotan hori materia organikoaren presentziarekin bat dator (Oiartzun), nahiz eta beti horrela ez izan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baldintza berezietan sortzen dira: ingurune erreduzitzailean (**anoxikoan**), nun materia organikoa ez den deskonposatzen ahal. ETC-entziklopedia

Ur **anoxikoetan** burdin katioi dibalenteak hidrogeno sulfuroarekin erreakzionatu eta sortzen den burdin sulfuroa sedimentatu egiten da. ETC-entziklopedia

Urez asetutako ingurune azido eta **anoxikoan** bizi direnez gero, materia organikoa ez da usteltzen eta zohikatz bilakatzen da. ETC-entziklopedia

Ohikoak dira ere sulfhidrikoa eta argia duten lakuen eremu **anoxikoetan**. ETC-entziklopedia

---

anparatu, anpara(tu), anparatzen du *ad* (norbait) babestu edo defendatu.

Behartuta gaudek norbait **anparatzera**. Juan Garzia

Geroago, lau urtez alemaniar gudarosteek suntsitua izan nahi duen oro, aldi berean kontatzeari, sardinzarrak jateari, merkataritzan aritzeari, lurra lehor edukitzeaz arduratzeari eta, Jainkoari eskerrak, margotzeari, mikroskopioak eta pendulu-erlojuak asmatzeari, itsas zuenbidea zorrozteari eta beren paradisuetatik egotzitako jatorri guztietako europarrak **anparatzeari** ekiten diola. Iban Zaldua

---

anparo *iz* babesa.

Etxean aitarekin geratu ziren bi alabek inoiz baino **anparo** gutxiago zeukaten anaia zaharrak joandakoan, eta aita oldartsu eta gogor haren atzaparretan inoiz baino babesgabeago zeuden. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ama Birjina Abuztukoaren **anparoan**, hortxe kokatuta dator San Roke. Pello Zabala

Zamorako familia ospetsu eta on bateko semea zen, erlijioaren **anparoan** hazitakoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hegazti handiago hauek, beti baserritik gertu, batez ere kanpoan aztarrika ibiltzean, edo ekaitza hasi orduko oiloetxearen **anparoan** gordetzen direnean, eskarmentua hartutakoak dira. Pello Zabala

---

anpizilina *(corpusean ez dago; ETCn **79** agerraldi)* *iz* penizilinen multzoko antibiotikoa.

Anpizilina bakterio-kontrako antibiotiko betalaktamikoa da, penizilina familiakoa. ETC-entziklopedia

Horregatik, infekzioak tratatzeko terapia konbinatua erabiltzen da (bi edo hiru antibiotiko batera; **anpizilina**, amoxizilina, gentamizina eta estreptomizina erabilienak izanik). ETC-entziklopedia

Beraz, paziente pediatrikoek helduek baino banaketa-bolumen handiagoa dute, eta horrek zuzenean eragiten dio farmako hidrofilikoen administrazioari, hala nola antibiotiko betalaktamikoei, **anpizilinari** kasu. ETC-entziklopedia

Antibiotiko seguruenak **anpizilina**, zefalosporinak eta ziprofloxazinoa dira. ETC-entziklopedia

Penizilina da listeriosia tratatzeko gehien erabiltzen den botika (**anpizilina** moduan erabiltzen da gehienbat penizilina hori). ETC-entziklopedia

Eskuarki, multinazional horiek eta euren kide txikiagoek zera egiten dute: intsektuekiko erresistenteak diren haziak ekoizten dituzte, baita herbizida edo **anpizilina** antibiotikoarekiko erresistenteak direnak ere. ETC-prentsa

Anpizilina antibiotikoaren kontra erresistentzia sortzen duen gene bat dauka bt10 artoak. ETC-prentsa

Penizilina erdisintetikoak abantailatsuak dira klinikoki, jarduera-espektroari dagokionez; horietako asko, gainera, aho bidez har daitezke, hala nola **anpizilina** (beraz, ez da injekziorik behar). ETC-zientzia, zuzenbidea

Hurrengo pausoa, LB-Agar (LB-BROTH-Lennox) **Anpizilina** (Sigma) plaketan ereitea izango da (Bunsen metxeroaren ondoan egin behar da plakak ez kutsatzeko, Anpizilinak 50 mg/ml-ko kontzentrazioa izango du eta handik 5 µl LB 5 ml-ra erantsiko dugu, dena 25 ml-ko Agarrekin (% 2) nahastuko da). ETC-zientzia, zuzenbidea

Farmako horien artean daude **anpizilina**, atenolola, bretilio bromuroa, kloranfenikol sukzinatoa, doxorubizina, metoprolol tartratoa, oxprenolol HCl-a, foledrin sulfatoa, propanolol HCl-a, kinina HCl-a, timolol maleatoa eta tropsium HCl-a. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anple *izond* zabala.

Mantxo-mantxo urrats handika zubi erdiraino heldu, bertan gelditu, eskuan zekarren txamarra lurrean laga eta, laneko monoa aise erantzita, keinu **anple** batez besoa luzatuz, utzi zuen hura errekara erortzen. Pablo Sastre

---

anpleki *adlag ipar* zabalki.

Anpleki ibiltez, 5 orenen altexea kontatü behar da hara-honaka egiteko. Herria

---

anpletu, anple(tu), anpletzen *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)* da/du *ad* baretu.

Asko, zeren eta lehenago ezagutu gizon mendre mehar hura pizu handiko izaki bilakatu zen, sabelez **anpletu**, besoak loditu, goloa jin zitzaion ere lepoa ezkutatzen ziona, nekez kurritzen zen hain zen gizendua, urrats bakoitzean izerdia zeriola turrustan. ETC-literatura, saiakera

Baina, bon, hori, orain ikusten dut kexa **anpletzen** baita, loturik baitira, ahalkea ere ari da ttipitzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

anplifikadore **1** *iz* seinale akustiko edo elektriko bat anplifikatzen duen gailua.

Jonek eta Mikelek instrumentuak aldean hartu eta **anplifikadoreak** piztu bitartean, Anek zutik zirauen bateriaren aurrean, artelan bati begiratzen zaion moduan. Unai Iturriaga

Gitarra eta baxua **anplifikadoreen** parean ipiniz txistu jasangaitz bat eginarazten amaitu zuten emanaldia. Unai Iturriaga

Jon jendartera jaitsi zen kantu batean, eta ia pikutara bidali zuen dena: kablea atera egin zuen **anplifikadoretik**. Unai Iturriaga

2 ***anplifikadore diferentzial*** *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Anplifikadore diferentziala sarrerako bi tentsio (elektrizitatea) tentsioen arteko diferentzia anplifikatzen duen gailua da, eta sarrera horiekiko komuna den edozein tentsio deuseztatzen du. ETC-entziklopedia

Instrumentazioko anplifikadorea bi sarreren diferentzia irabaziarekin biderkatzen duen **anplifikadore diferentzial** mota bat da. ETC-entziklopedia

Alderantziz, korronte eta tentsio iturriak bata bestearekin arazorik gabe konektatu daitezke, eta teknika hau era zabalean erabiltzen da zirkuiterian -adibidez, **anplifikadore diferentzial** etapetan, eta abar-. ETC-entziklopedia

3 ***anplifikadore elektroniko***

Soinuaren bolumena areagotzea baldin bada helburua, nahikoa da **anplifikadore elektroniko** bat erabiltzea. Berria - Kultura

4 ***anplifikadore operazional*** *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Lehenengo **anplifikadore operazional** monolitikoa 1960ko hamarkadakoa da, Bob Widlarrek diseinatutako Fairchild anplifikadorea atera zuten, baita Bob Widlarrek deiseinatutakoa. ETC-entziklopedia

Askoz ere praktikoagoa da 'biralari' deitutako zirkuitua erabiltzea, **anplifikadore operazional** baten bidez kondentsadore batek induktore modura jokatzea ahalbidetzen duena. ETC-entziklopedia

Alderantzizko eskaladun bihurgailuetan etengailuek eta lurrarekin edo **anplifikadore operazionalarekin** lotzen dituzte 2R balioko erresistentziak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oro har, transferentzia-funtzio horrek edozein ordena izan dezake, baina jarraitu gisa inplementatu nahi bada, **anplifikadore operazionalen** bidez osatzen da, eta nahiko sinplea izan ohi da (2. ordenakoa gehienez). ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***soinu-anplifikadore*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Bideo hartan, Marclayk, **soinu-anplifikadore** bati konektatutako gitarra elektrikoa lotu zion autoaren atzealdeko paratxokeari. ETC-prentsa

---

anplifikagailu *iz* seinale akustiko edo elektriko bat anplifikatzen duen gailua. ik **anplifikadore**.

Telefonia-ingeniariek ondotxo ezagutzen dute arazo hori, eta linean **anplifikagailu** bat jarrita konpondu ohi dute. Irene Aldasoro

· *irud/hed* **Anplifikagailu** kimiko bat dago muskuluaren eta nerbio-zuntzaren arteko lotunean. Irene Aldasoro

---

anplifikatu, anplifika(tu), anplifikatzen **1** du *ad* gertakari fisiko baten intentsitatea handitu.

Lehengo erromerietan ez zuten ahotsa **anplifikatzeko** aukera, eta zaratarekin ezinezkoa egingo zitzaien kantatzea. Berria - Kultura

-Haitzuloetan sarrarazten zituen Dionisiok presoak, latomiak haitzuloz josita baitzeuden. -Haien aurrean zegoenak akustika ezin bikainagoa zuen; zaratarik txikiena **anplifikatzen** zuen: zoruan eginiko marmarrak ekaitz baten burrunba zirudien-. Jon Muñoz

Alboko dendatik datozen deiadarrak entzutean, zuek ere deiadar eginen diezue, eta oihuok ikaragarriak izanen dira haizearen uluekin nahastu eta desitxuraturik, batzuetan zeharo ahulduak, urrundik datozela diruditela, besteetan oso **anplifikatuak**, beldurgarriro dardarakariak eta etsi etsi luzatuak. Joseba Sarrionandia

Gailuaren orratzak diskoko ildo espiralean grabaturiko gorabeheretan aurrera egin ahala, korronte elektriko bihurtzen dira orratzari eragiten zaizkion presio-aldaketak, eta korronteok, egoki **anplifikatuta**, bozgorailuetatik irteten dira jatorrizko soinua erreproduzituz. Irene Aldasoro

Besteren artean, Von Weber-en azken baltsaren doinu gogorraren bertsio bitxi bat, gaiztoa eta **anplifikatua**, gordetzen dut oinazez gogoan. Koro Navarro

Egia osoa, egia mina, ez da bakarrik jateko moduko platera; ez da nork bere buruari gordinki esatekoa ere, zeren pertsona bakarraren barrunbean oihartzun edo durundio gaiztoa egiten baitu, eta asko eta izugarri baita **anplifikatzen**. Iñaki Segurola

2 handitu.

Bere lanari buruz esaten den guztia mila bider **anplifikatuko** da haren bihotzean: esandakoa txarra bada, mila bider min egingo diozu, eta ona bada haren maitasuna eta esker ona izango dituzu urrezko azpilean, eta bizitza guztirako izango da, bai bata, bai bestea. Pako Aristi

3 (era burutua izenondo gisa)

Lazkanoren arabera "emanaldi oso berezia" izango da Formentik piano **anplifikatu** batekin eta irrati batekin egingo duena. Berria - Kultura

Ekitaldi gehiena eman zuen harmonika **anplifikatuaz** eta bakarrik azkenengo kantuetan jo zuen garbi, country blues pieza dibertigarri batzuk egiten zituen bitartean. Berria - Kultura

---

anplifikatzaile *iz* gertakari fisiko baten intentsitatea handitzen duen gailua.

Oholtzan lauzpabost lagun musika tresnak eta **anplifikatzaileak** garraiatzen ari dira oholtzaren mutur batetik bestera. Javi Cillero

Musikariak entsaiatzen ari dira, eta soinua gogor-gogor dator **anplifikatzaileetatik**. Javi Cillero

---

anplifikazio *iz* anplifikatzea.

Zaila da musikoaren hitzetatik liburu bat ateratzea; muga estuak dira horiek zabaltasuna, **anplifikazioa** helburutzat dauzkan adierazpide batentzat. Pako Aristi

---

anplitude **1** *iz* zabala denaren nolakotasuna; gertakari fisiko baten intentsitatea.

Airean, nahiko txikiak izaten dira presio-aldaketak, eta **anplitudea**, hau da, bibrazioen ondorioz aire-molekulek ibilitako distantzia, nahiko handia. Irene Aldasoro

Indar gehiagori **anplitude** gutxiago dagokio; eskua, izan ere, hogeita hamar zentimetro edo gehixeago mugitzen da gora eta behera, eta automobila, berriz, zentimetro edo milimetro batzuk baino ez da igotzen. Irene Aldasoro

Tinpanoak eta hari loturiko hiru hezurtxoek egiten duten palanka-efektuak berrogeita hamar bat aldiz gutxitzen du tinpanoaren eta leiho obalaren arteko soinu-bibrazioen **anplitudea**, eta, jakina, erlazio berean gehitzen haiek eragiten duten presioa. Irene Aldasoro

Bigarrenik, korrontearen **anplitudea** (hau da, tamaina) handitu eta txikitu egiten da soinuaren ozentasunaren arabera. Irene Aldasoro

Zabalera edo **anplitudea**. Lourdes Oñederra

2 ***anplitude modulatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Anplitude modulatuko Irratia (AM): horrelako irratien kasuan, eramaile baten anplitudea modulatzen du seinaleak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antena uhin elektromagnetikoak jasotzeko edo igortzeko gailua da edozein haririk gabeko edo irrati komunikazioko (EN: en: Radio radio) sistematan erabilia (adibidez **Anplitude Modulatua** AM, Frekuentzia Modulatua FM, telebista digitala edo WiFi). ETC-entziklopedia

Anplitude Modulatua AM modulazioak baino kalitate hobea dauka zaratak eragin gutxiago daukalako, baina banda zabalera handiagoa erabiltzen du. ETC-entziklopedia

Irrati-difusioa **Anplitude Modulatua** AM irratiaren agerpenarekin batera zabaldu zen 20ko hamarkada inguruan balbula termoionikozko irrati transmisore eta hargailuen garapenarekin batera. ETC-entziklopedia

Irrati digitaleko eskemetan, uhin eramaile bat edo gehiago dira kontrol-seinale batek modulatzen dituenak: **Anplitude Modulatua** edo anplitudea, maiztasuna edo fasea transmisio egokia behar dira seinale digitala sortzeko. ETC-entziklopedia

3 ***anplitude modulazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Anplitude modulazioa baino ezagutzen ez duen irrati ingeniari batek arazoak izan litzake gaur egun erabiltzen den haririk gabeko komunikazioak deskodetzeko. ETC-prentsa

Uhinen modulazioa bi eratan egin daiteke: anplitudean (**anplitude-modulazioa**, AM) eta frekuentzian (frekuentzia-modulazioa, FM). ETC-zientzia, zuzenbidea

Anplitude-Modulazioa (AM): seinale modulatzaileak uhin eramailearen anplitudea modulatzen badu, orduan **Anplitude-Modulazioa** (AM) dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aipatu beharra dago, mikrofonien ondoriozko desintonizazioak, I eta Q osagaietan perturbazioak sortzen dituela (fase eta **anplitude modulazio** moduan). ETC-zientzia, zuzenbidea

Zuntz gaineko Ethernet Gigabit-ean eta Spanning Tree Protocol STP (1000base-T)-en -8b/10b- kodeketa erabiltzen da. UTP 5. maila gainean erabiltzen den Gigabit Ethernet-ek **anplitude-modulazio** kodeketa erabiltzen du. ETC-entziklopedia

---

anpoila ik **anpulu**.

---

anpolai *iz/izond* gerezi edo ginga mota handi eta gizenen izena.

Gereziek, banan-banan lerrokaturik, neska txinatar irribarretsu baten ezpain estuegiak ziruditen: Montmorency gereziak, andre gizenaren ezpain potoloak; ingelesak, luzeagoak eta serioagoak; gingak, haragi arruntekoak, beltzak, musuz mailatuak; **anpolaiak**, zuriz eta arrosaz zikinduak, barrez, alai eta haserre aldi berean. Karlos Zabala

-Gure herriko gereziak ere ez dira zure ezpainak bezain **anpolaiak** -esan zion printzeak Brigidari, eta emakumeak irribarre egin zuen, arranoak arkumea ikustean irribarre egiten duen bezala. Felipe Juaristi

Gerezi sasoian, amak konpota egiten du azokan aurkitzen dituen **anpolai** gizenenekin eta, gero, potetan sartzen. Anjel Lertxundi

Gure galdera eta adar-jotze lotsagabeekin haserretzen genuenean, begizta estutzen zuen urduri, eta aurpegi berez zuri hartan, papoek **anpolaiak** ematen zuten. Anjel Lertxundi

Anpolai biribil-biribila, gorria, distiratsua, likitsa eta txorten luze batetik zintzilikatzen zena. Jasone Osoro

Baina ez nion Ifarkoian gertatutakoari buruzko deus aipatu, Adaren **anpolai**-moduko bular txiki tenteak eta gorputz biluzia kariziatzeko irrikaz nengoen eta. Anjel Lertxundi

Anpolai-buztana oparitu, altxatu, eskuan musu bat eman eta alde egin zuen. Jasone Osoro

Nik bi **anpolai** sentitu nituen masailetan behera. Inazio Mujika Iraola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anpolai buztana** (3)

---

anpolaiondo *iz* arrosaren familiako landarea, anpolaiak ematen dituena.

Gogoan dut, mutikotan, **anpolaiondo** gainetik ekarri nuela, deiadar eta txilio, nire lehengusua, intsusaren lore-xorta handi zabal bati usain egitera. Pello Zabala

---

anpoloi ik **anpolai**.

---

anpor *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)* **1** *iz* enborra.

Kauen dios! hartu du oin artean errekatik ekarritako **anporretako** bat; abandonatu egin dudala! ETC-literatura, saiakera

Lebatza da **anporra**. ETC-literatura, saiakera

Ezetz uste nik: enborra, **anporra**, onporra, lur jotako egurkondo zaintzu, adartzu, moztaka, itsusi, hari eta molde gaiztoko, barrengaldu, erdiustel, geldo, artotu, etzan, alfer, potzo... adierazteko erabili du euskaldunak bere usario bizian. ETC-literatura, saiakera

2 ***gezur-anpor*** gezur hutsa.

-**Gezur-anporra** ari zara esaten, baina hasi naiz zu ezagutzen. ETC-literatura, saiakera

Jende askok "alako aixa nola antxua baliak" irentsi omen zuen **gezur anporra**. ETC-prentsa

---

anpula ik **anpulu**; **anpoila**.

---

anpuloski *adlag* era anpulosoan.

Gabiako likatan preso geratutako kaioari luma kendu eta idazten hasiko zen gero bere kaierean, **anpuloski**. Harkaitz Cano

---

anpuloso *izond* hanpatua, hanpurutsua.

Hondorik gabeko hitz **anpulosoak**. Hasier Etxeberria

---

anpulu *(orobat **anpoila** eta **anpula**)* **1** *iz* beirazko bilgarria.

Azken zokoraino miatu nuen, alferrik, Ikastegiaren erraietan: dozenaka **anpoila** etiketadunak aurkitu nituen, Astolfok Ilargian bezala, ehunka konposatu antzemangaitzak, bestelako sedimentu anonimo, itxura zenez aspaldiko belaunaldietatik ukitu gabeak, baina sodiorik batere ez. Juan Garzia

Lantegi horretan erremedio likidoak egiten dituzte eta berinazko untzietan ezartzen, flaskoak eta **anpula** injektagarriak berezik. Herria

Anpula eta flaskoak erremedioz betetzeko lana hastetik buru kontrolatua da; langileak "gela xurietan" ari dira: berek higiena lege zorrotzak betez eta gelako airea filtraturik. Herria

Poliziak xiringak, odol poltsatxoak eta ur destilatuko **anpuluak** atzeman zituen logeletan. Berria - Kirola

-Maisuaren edabetik emango diot, jauna -poltsatxotik **anpulua** atera eta hura erakutsiz esan nion-. Edorta Jimenez

Orduan, kolore guztiek leher egiten zuten **anpulu** baten modura, eta berriro, zuri, gorri, berde. Felipe Juaristi

Kaltzio **anpuluak** eta estradiol injekzioak hartzeko agindu zidan. Joseba Urteaga

Poliziak xiringak, odol poltsatxoak eta ur destilatuko **anpuluak** atzeman zituen logeletan. Berria - Kirola

Haien gainean, murrutik dilindan, arrosa kolorezko bihotz distirant handi bat, piztuak ziren elektrika-**anpuluz** hornitua. Aurelia Arkotxa

Andreak dena prestatu dik: tantaz tantakoa, pixontzia, morfina-**anpuluak**... Iban Zaldua

2 tanta; burbuila; bonbila.

Río Usamacinta-n bainatu naiz: hau bai, aldatu da; ur gehiago dauka, eta **anpulurik** ez, ur-lasterra joriago baitoa. Joxe Austin Arrieta

Zerk atsekabetzen zaitu horrenbeste, lagun; zure malkoek **anpulu** zilarrezkoak dirudite. Karlos Linazasoro

Ur-**anpuluak**, gizendu ahala, kristalean behera irristatu ziren, eta marrazkia desitxuratu zuten. Anjel Lertxundi

Ataka hartan bihotz ilunak egiten zitzaizkion, gorputz adarrak hozmindu, kopeta izerdi **anpuluz** bete. Patxi Zubizarreta

Marrazkiaren inguruan, urtu egin zen lurruna eta **anpuluak** sortu ziren. Anjel Lertxundi

Izerdia tontorka zerien nire poro guztiei, eta **anpulu** handi hotzetan geratzen zitzaidan kopetan itsatsita. Koro Navarro

Marrazkiaren inguruan, urtu egin zen lurruna eta **anpuluak** sortu ziren. Anjel Lertxundi

Hortik aurrera gure arteko isilunea puztuz joan da, hanpatuz -xaboi-**anpulu** baten moduan-, gure sala txikia barnean hartzeraino. Patxi Iturritegi

Haien gainean, murrutik dilindan, arrosa kolorezko bihotz distirant handi bat, piztuak ziren elektrika-**anpuluz** hornitua. Aurelia Arkotxa

3 ***negar anpulu*** negar malkoa.

Noren bihotza ezarri behar zaio gramatika bati barkatu esatetik barkaidazu esatera dagoen aldea -**negar anpulu** eta guzti- zertan den erakuts dezan? Iñigo Aranbarri

Ajeak ere izango zian zerikusirik **negar-anpulu** horietan. Pedro Alberdi

Ez ba: lehen **negar-anpuluak** zurruztan ziren begi ertzetik beheiti. Aingeru Epaltza

-Txo, aspaldiko! -esan zidan, **negar-anpuluak** begietan-. Jon Arretxe

Neuk ere, juez guztiok bihotz gogorraren izena badugu ere, ezin nien **negar anpuluei** eutsi. Gotzon Garate

Eta areago urtu zen **negar anpuluetan**, eskaini zion kanta hasitakoan. Xabier Montoia

Orduan, aspaldiko partez, ama, ahal bezain amultsuki ene bi besoen artean hartu nuen eta gure bi matelek elkar hunki zutelarik, ene **negar-anpuluek** harena busti zuten. Daniel Landart

-Bene-benetan, **negar anpulua** eriola. Xabier Amuriza

· Hala egon zen luzaz, kotoiari xera eta xera, laztan antzuetan, begi argiak hainbatgarren aldiz **anpuluen** distiraz edertzen zitzaizkion bitartean. Xabier Mendiguren Elizegi

4 ***euri anpulu*** euri tanta handia.

Egunsentian, euri **anpulu** lodiak erori ziren lur gainera. Juan Garzia

· Isuri eta isuri segitzen zuen urak, **anpulu** atergabetan tulubioka. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anpulu baten** (3); **negar anpulu** (3); **zuten anpulu** (3)
> **negar anpuluak** (6)

---

anpuluka *adlag* anpulutan.

Jaitsi da, arnasestuka, arnas **anpuluka**, Safo eta Egearen logela prestatzen ari zelarik suziak ikusi dituela esaka, Felipe Juaristi

---

anpulutxo *iz* anpulu txikia.

Anpulutxo bat bazen kutxaren barruan eta harexen usaina zen. Edorta Jimenez

-Maisuaren sendagarriak -berbak mamurtuz **anpulutxoa** hartu nuen. Edorta Jimenez

Anpulutxoari estalkia kendu, usaindu eta berriro itxi ostean, lehengo lekuan utzi nuen. Edorta Jimenez

Hatzetatik irristatzen laga dun eman geninan beirazko **anpulutxo** koloreztatua. Juan Garzia

---

anpuñatik *(orobat **apuñetik** g.er.) adlag ipar* **

Apuñatik arizana da Jakes Haundia. Herria

Gobernuburu sailari **apuñatik** lotua zela eta sail hori nahi zuela (eta duela) segitu... Herria

Gobernuari dena konplimendu arizan da, bide onean doala eta holako, eta aldakuntza batzueri **apuñatik** lotuko dela ondoko egunetan. Herria

Bainan erranen halere, gainerat Kantu Xapelketan ere Eztitxuk parte hartzen duela Naia Carrere Lekuinekoarekin, eta berak asmatu kanta, **anpuñatik** emaiten dutela!! Herria

Bixtan da hamarrak eta laurdenetako, jende guziak etorriko direla, eta hola, **anpuñatik** eta xuxen kantatuko dugula. Herria

Aire ahizpak hor ziren beren boz lantuekin, eta Niko eta Dominixe Etxart aita semeek, Robert Larrandabururekin, gogotik eta **apuñatik**, loriatu gaituzte. Herria

Elizkizun guziz ederra eta alaia izan da, **apuñetik** eman baitituzte kantu guziak. Herria

---

anpurus *izond* handiustetsua, harroputza.

Ez nituen nik orduan hitz arrotz eta **anpurus** horiek oso ongi konprenitzen. Txillardegi

-Zaharregi nuzue -esan zigun halako batez aitatxi Erramunek- gauetako isilpean taupada eta melodi **anpurus** horiek lasai entzuteko. Txillardegi

Baina bulebar **anpurus** hau... Txillardegi

Othoi! Horrelako zerbait esan zian, **anpurus**, harroputz. Txillardegi

anputatu, anputa(tu), anputatzen **1** du *ad* izaki bizidun bati gorputzaren zati edo atal bat erabat kendu.

Esaten dute gorputz zatiren bat **anputatzen** dizutenean, hasiera batean behintzat, oraindik sentitzen duzula. Sonia Gonzalez

Istripuak, zauriak edo gerrak baziren orduan ere -inoiz ez da horrelakorik falta izan- eta kasu larrienetan Listonen **anputatzeko** trebezia eta azkartasuna ezinbestekoa zen hiltzeko zorian zegoen koitaduari aukera bat emateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 irud/hed

Arrazoi horregatik debekatu zuten La grande illusion Alemanian eta Italian, eta **anputatua** izan zen "paradisu" demokratikoan. Berria - Kultura

---

anputazio **1** *iz* izaki bizidun bati gorputzaren zati edo atal bat erabat ebakitzea.

Erredura larriak eta hatz baten **anputazioa** pairatu zituen, besteak beste.... Abu Ghraiben 2003ko azaroaren 24ean gertaturiko istiluetan lau preso hil zituzten Estatu Batuetako Polizia Militarreko kideek. Berria - Mundua

2 irud/hed

Izan ere, lege-kanporatzeak burutu dituzten PSOE eta PPren aldamenean, bai PNV-EA-IU, bai Aralar bera ados ziren **anputazio** larriaren ondorengo estatusa balekotzat ematerako orduan. **Anputazio** guztiengatik ere, dantzatzen ahal zinen rock and roll irrati batekin. Berria - Harian

---

ansiolitiko ik **antsiolitiko**.

---

antagoniko *izond* aurkakoa, antagonismoa adierazten duena.

Erruduntasunaren inguruko diskurtsoa osatzeko beharrezkoak zaizkio kontrakoak idazleari, pertsonaia **antagonikoak** eta aurkakotasunezko egoerak. Berria - Kultura

Fedro edo Esoporen fabularen bat, bi animalia edo bi pertsonaia **antagonikoren** solasa biltzen zuena -txirrita eta inurriarena, konparazione- eta guk harrointzat hartu behar izaiten genuena. Joan Mari Irigoien

Horrela egon daitezke indar **antagonikoak** urteak joan eta urteak etorri beren betiko jarreretan, bitartean munduan ezer aldatu izan ez balitz bezala. Joseba Zulaika

Talde txikiek ezin dute bi bloke **antagonikotan** baturik luketen botererik eskuratu. Xabier Amuriza

Ez du onartzen "etsaia"ren desegitea, zeren norberaren nortasun **antagonikoa** desmuntatzea eskatuko bailuke. Joseba Zulaika

Ez Sergiok eta Anderrek elkarren antza zutelako, batere antzik ez zutelako baizik, bataren zein bestearen gorputzek eredu estetiko **antagonikoei** erantzungo baliete bezala. Joan Mari Irigoien

Horien aurrean, bi ikuspuntu erabat **antagoniko** daude: batetik, teknika berri horiek erabat pontifikatzen dituztenak ("erabili beharrekoak dira", "ezin dira utzi enpresaren konkurrentzia areagotu nahi bada", eta abar); eta bestetik, eszeptizismo hutseko jarreraz ikusten dituztenak. Iñaki Heras

Tradizionalki euren arteko dikotomiak agerian utzi eta **antagonikoak** izan diren xiitek eta sunitek bat egin dute okupazio indarrei aurre egiteko erresistentzian. Berria - Mundua

---

antagonismo *iz* aurkakotasuna.

Interes desberdinak aurrez aurre daudenen artean, alderdi abertzaleen eta espainolisten artean kasu, **antagonismoak** garbiak dira eta ez dago traiziorik. Joseba Zulaika

Gizartearen eta psikologiaren gune berezietan, ametsen pentsamendu ezkutuetan, **antagonismo** konponezinezkoetan. bera zen pertsonarik ikusgarri eta gogoangarriena bilera bakoitzean, eta karikaturagileek bere ile zuria eta bibote beltz handia erabiltzen zuten, herriko **antagonismo** politikoa marrazteko. Joseba Zulaika

Anti-Borges deitu izan zaio Rodolfo Walshi Argentinan, beste idazle harekiko **antagonismo** politiko nahiz bitala azpimarratzearren. Berria - Kultura

Eskuin espainolari bere **antagonismo** ideologikotik, hots, ezker independentistatik egin behar zaio aurre. Berria - Euskal Herria

Beste era batera esanda, **antagonismo** hutsa izatetik espazio hegemoniko autonomo baina artikulatua izatera iristeko biderik egon al daiteke? Joseba Zulaika

Ezetzaren **antagonismotik** sortzen da identitatea, eta ezetzaren indarra du beharrezko mugimendu politiko batek demokrazia indarberritzeko. Joseba Zulaika

Antagonismo ituri boteretsuren baten bizkar ez bazara ari (Justizia, Aberria, Konstituzioa, Zuzenbidezko Estatua), badirudi zure idatziak ez duela ezer balio. Joseba Zulaika

---

antagonista **1** *izond* aurkakoa, aurkaria.

Indar **antagonistak** batzuetan helburuen arabera juntatzen dituk! Itxaro Borda

Gainera, beste inon ez bezala, ezker **antagonistako** edozein ikuspegiri buruzko materiala dugu hemen, eztabaidarako leku da, CNTkoak zein ezker abertzalekoak. Berria - Kultura

Aurrekari haiek gure oraingo ikuspegi psikologikotik aztertuko bagenitu, guztietan aurkituko genituzke zelotismoaren eta herodianismoaren bulkada **antagonisten** artean txandakatzeak eta gatazkak. Iñaki Mendiguren

2 (izen gisa)

Ez dago pertsonaia nagusirik, protagonistarik eta **antagonistarik**. Berria - Kultura

Azken hori lapurretaren buruaren **antagonista** da, legearen aldean dagoen buruzagia. Ugazabekiko borrokan tinko eusteko langileak gaitzen zituen tresna gisa hartuta, sindikatu horiek eta beren **antagonista** kapitalistak gizarte-sistema beraren sorkariak ziren. Berria - Kultura

Antagonista Aita Froilan zen, benetan pertsonaia higuingarria. Martin Anso

Huts egin zuten eginkizun honetan; eta ondorioz Islamaren aurrerapen mehatxagarriak Islamaren Mendebaldeko **antagonista** etsiak deabruaren eta itsaso sakonaren artean jarri zituen. Iñaki Mendiguren

Orain, berriz, erranen dizut ezen mendi horren igaiteko etsairik eta **antagonistarik** handiena imajinazinoa dela. Joan Mari Irigoien

Beren kultur mailako **antagonisten** kontra. Iñaki Mendiguren

---

antanaklasia *iz*

Antanaklasiak hitz homonimoak aurrez aurre jartzen ditu, zeinek bere esanahi propioarekin, anbiguotasun arrastorik gabe, hitza funtzio edo testuinguru ezberdinetan errepikatzeak zehaztu egiten baitu kasuan kasuko esanahia. Iñaki Arranz

Hizkuntzek homonimia dute jolaserako baliabide emankorrenetako bat, **antanaklasiak** inolaz ere agortzen ez duena, eta liburu honetan gehiagotan ekarri beharko dugu hizpidera. Iñaki Arranz

Antanaklasiaren izenpean, esanahi ezberdineko hitz homonimoak elkarren ondoan paratzeak ekar ditzakeen ondorioez jardun dugu. Iñaki Arranz

Antanaklasiaz ari ginen, eta orain zehaztasun gehiagoz defini dezakegu: hitz pare homonimoak esaldi batean (edo elkarren oso gertu dauden esaldietan) paratzea. Iñaki Arranz

---

antapara *(ETCn **76** agerraldi; orobat **antepara** ETCn **116** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **antapara** agertzen da)* **1** *iz* olara ura eramaten zuen erretena edo ubidea.

Behinola errota izana, bere **antepara** eta guzti, hantxe neukan neure aurrean, Egaren ertzean bertan; Onzinedako malkortxora so, eskuinaldean harri bizi eta zuriskaz oratua. Txillardegi

Harresien luzeran eta lodieran, bastioien kokaeran eta kopuruan, **antepara** eta lubakien antolamenduan eta sakoneran, denetan, hitz batez, maila batzuk gorago zen Nabarrenkoxeko ziudadela. Aingeru Epaltza

Berehala **antepara** bat iritsi dute, eta honen gainetik joaten saiatu badira ere, laster etsi behar izan dute, goroldio bustiaz estaliak baitaude ertzak. Pello Lizarralde

Gizonak eta emakumeak bultzaka sartzen ziren egurrezko tunel kirastuan, elkar estutuz eta zanpatuz, **anteparatik** dolarera erortzen diren sagarrak bailiran. Lopez de Arana

Asteak joan asteak etorri, ordea, ez ubiderik ez **antapararik** eraiki zigun gure gizonak. Joxerra Garzia

2 irud/hed

Urria, nolanahi ere, neguaren **antapara** gertatu ohi da: zubi edo atari, ataurreko eta ezkaratze. Pello Zabala

---

antartiko **1** *izond/iz* Hego poloarena, Hego poloari edo inguruei dagokiena.

Azken finean, **Antartikoko** izebergetan ere mikrobioak aurkitu dituzte ikertzaileek. Berria - Gaiak

Ondorio horretara heldu dira **Antartikoko** Institutu Britainiarreko ordezkariak, eta ikerketa lana argitaratu dute Science aldizkarian. Guk gaur Hartz Handia deitzen dugun konstelazioak [...] eta **antartiko** (hartzaren kontrako aldean dagoena) datozen bezalatsu- izango zuen izena euskaraz ere, agian. Berria - Gaiak

2 ***marikaka antartiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

"Stercorarius maccormicki" - Marikoi antartiko - **Marikaka antartiko**. ETC-entziklopedia

3 ***marikoi antartiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Marikoi antartiko, "Stercorarius maccormicki". ETC-entziklopedia

4 ***Ozeano Antartiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

14.700 km luze eta 106.400.000 km² inguru ditu (munduko bigarrena Ozeano Barearen ondotik). Muga hauexek ditu: Ozeano Artikoa, iparraldean; Ozeano Australa eta **Ozeano Antartikoa**, hegoaldean. ETC-entziklopedia

Horrekin batera, **Ozeano Antartikoan** nabigatzen duten itsasontzientzako gida berria proposatu dute, itsasontzi handiek lasta gisa erabiltzen duten ura baita espezie arrotzen ohiko iturrietako bat. ETC-prentsa

Hilabete beranduago, uztailaren 1ean, **Ozeano Antartikoa** eta hego poloaren artean izango da eklipsea. ETC-prentsa

Ozeano Antartikoan bizi diren arrainen %90 nototenoideo familiakoak dira. ETC-prentsa

Nik erraustsak itsasoan barreiatu nahi nituen, munduaren amaierako itsasoan, planetaren behealdeko biribilean: **Ozeano Antartikoan**. ETC-literatura, saiakera

Ozeano Antartikoan 500 milioi tona krill daudela kalkulatu izan da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ekologistek, esan bezala, nazioartean zabaldu dituzte aldarri horiek, eta, horren ondorioz, Japoniako baleazaleek askoz ere balea gutxiago harrapatzen dituzte orain **Ozeano Antartikoan**. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***zirkulu antartiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Zirkulu antartikoan goialdean gertatzen denaren aurkakoa gertatzen da: Eguzkiak ez du argitzen egun osoan, beti dago 23 graduko kokapenean ostertzaren azpitik. ETC-prentsa

Zirkulu antartikoak eguneko eguzkia eguzki izpien muga egiten du neguko solstizioan eta udako solstizioan aldiz, gaueko eguzkia eguzki izpien muga. ETC-entziklopedia

6 ***zirkulu polar antartiko***

Amérique, Amerika, munduaren parteetako bat da, 42 milioi kilometro karratuko kontinentea, eremu artikoetan hasi eta **zirkulu polar antartikoraino** hemezortzi mila kilometroko bidean luzatzen dena. Bernardo Atxaga

>2449<->3802<-

---

ante[1] *iz* altzearen edo kideko abere baten larru landua. ik **dama**.

Jimmyk adi-adi begiratu zion Jojoren **ante**-larruzko botin arrosetatik irteten ziren txarolezko triangeluei. Lopez de Arana

---

ante[2] latinezko preposizioa, zenbait esamolderen parte dena.

2 ***ante meridiem*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

"Meridiano" latinezko "meridies" hitzetik dator, euskaraz "eguerdia"; eguzkiak meridiano bana eguerdian zeharkatzen dituenez, orduak ezberdintzeko erabiltzen da, horrela sortu ziren A.M. ("**ante meridiem**") eta P.M. ("post meridiem") kontzeptuak. ETC-entziklopedia

3 ***ex ante***

Alderantziz, osagarritasunaren logika, faktore-hornigaien desberdintasunaren ondorioz, aktiboagoa bide da **ex ante** manufakturen Ipar-Hego trukeetan. Koro Navarro

---

anteaju *iz* antiojoa, betaurrekoa.

Ternik **anteajua** kendu eta musuzapian garbitzen zuen. Fernando Rey

Zenbait minutuz begira-begira gelditu eta ondoan, **anteajua** kendu eta musuzapi zuri izugarri fin batekin garbitzen zuen. Fernando Rey

Orain berriz pentsatuta, uste dut **anteaju** harekin eta gure eta margolan ospetsu haien artean antzekotasunak aurkitzeko usadio horrekin Swan imitatzen saiatzen zela. Fernando Rey

---

anteajudun *izond* betaurrekoduna.

Gure aitona gaztetxo **anteajuduna** zen, izen handiko abokatua bere lanbidearen hasieran, eta gure amonak egunero aditzen zuen nola galdetzen zion atezainari etxe atarian: "Ba al dago léterarik niretzat? Fernando Rey

---

antena **1** *iz* uhin elektromagnetikoak igortzeko eta hartzeko eroale airetarra.

Telebistako **antenak** ere bai. meteorologia behatokia zegoen terraza gain berean, han kokatu genuen Segura Irratirako **antena**, Arantzazuko seinaleak igorriko zituena. Pello Zabala

Euli normalak badu, begi bakoitzaren gainean, **antena** gisako bat. Juan Garzia

Tximeletek **antenen** bidez "jasotzen" dute usaimena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Heldu ginenean, solaserako aitzakia izan genituen gailurreko bi **antenak**. Juan Luis Zabala

Lehenengo deia dela eta, barkamena eskatu behar dizuegu, ez baita oso egokia izan, baina adierazten digutenez, beste bat dugu **antenan**. Jon Arretxe

-Hementxe gaude berriro zuekin, entzuleok, eta kontroletik egiten didaten seinalearen arabera, badirudi beste dei bat daukagula **antenan**. Jon Arretxe

Hurrengoa **antenan** dago jadanik. Jon Arretxe

Hor hasten dira agertzen, zirriborroan, burua izatekoa, bere begi, baraila eta **antenekin**; toraxa izatekoa, hegal pare batekin eta hiru hanka parerekin; abdomena izatekoa, bere uzkialdearekin. Juan Garzia

2 *antena paraboliko*

Masta gainean antena **parabolikoa** jirabiraka ari zen, *Bisibilitatea zero,* eta kapitaina pantailako zirkulu kontzentrikoei begira, argi orratz fina bueltaka ari zela. Joseba Sarrionandia

Ez nuen telebista jarri, nahiz eta hoteleko antena **parabolikoaren** bidez kanal mordo bat ikus nitzakeen. Jon Muñoz

Izan ere, harriez zer edo zer badakike, baina herriez deus ere ez daki, belarri handion antena **parabolikoa** beste satelite baterantz ditu-eta zuzendu eta konektatuak. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antena bat** (4); **antena handia** (3); **antena parabolikoa** (4); **metroko antena** (3)
> **antenaren ordez** (3)

---

anteojo *(orobat **antiaju** g.er.) iz pl* betaurrekoak.

Buzo txuria zeraman, edo beltza, eta kaskoa eta **anteojoak**. Karlos Linazasoro

Luxuzko **anteojo** batzuk zeuzkan eskuineko eskuan, ezkerrez maingua baitzen, hark berak minutu batzuk lehenago adierazi zidanez. Karlos Linazasoro

Gonbidatuak Horazioren liburu bat atera zuen patrikatik, **anteojoak** jarri, eta, ozenki, kamerari begira, irakurri zuen: [...]. Karlos Linazasoro

· *irud/hed* Nire liburua soineko bat da, egunerokotasunaren absurduan ehundua, ironia sotilaren urrezko hariz josia, eta jolasa du titare, injenioa **anteojo**, trajedia gerriko, eta ezustea andere lirainaren gorputz. Karlos Linazasoro

---

antepara ik **antapara**.

---

antepetxo *iz* erorikoak saihesteko leku altu batean jartzen den hesi edo barandilla.

Ez da nabarmenduko, beraz, Espainiako Erregina Errejentaren bularra Donostiako Santa Maria elizako tribunako **antepetxo** gorrian, baina halanbe abaniko astinduek eragiten duten harrabotsa dateke funtzio eder hau arruntu egiten duen gauza bakarra, batez ere Orfeon Donostiarra Requiemari lotu zaionean. Koldo Izagirre

---

antera *(corpusean ez dago; ETCn **41** agerraldi) iz* lorezilaren goiko zatia, lore hautsa sortzen duena.

Botanikan, **antera**, estamine bat amaitzen den zatia da. Hitza, grezierazko "anteros" hitzetik dator, loratua esan nahi duena, **anterak** ikusgai egoteak, antesi edo loraketaren punturik gorena adierazten duela esan nahi duelarik. ETC-entziklopedia

Lobuluak 0,6 mm-koak dira eta patenteak. 1,5-2 mm-ko **anterak** dituzte, inklusoak edo apur bat exertuak. ETC-entziklopedia

Estaminen **anterak** triangeluar-linearrak (oso estuak) eta 1mm-ko apendizedunak dira. ETC-entziklopedia

Anterak gingil obalo-lantzeolatudunak dira. ETC-entziklopedia

Kalizeko piezak oinean bateginda eta kolore gorrixkako **anterak** dituzte. ETC-entziklopedia

Loreetan ere badute aldea: maiatz aldera loratzen da intsusa eta petaloak laruak ditu; uztail-abuztuan zihaurriak irekitzen dituen lorearen petalo zuriak ertzean gorriz zipriztinduak dira, eta barruko **anterak**, ardo kolorekoak. ETC-prentsa

Lorezilak filamendu luze batzuez osatuta daudela esan dugu: filamendu horiek goiko partean **antera** izeneko zabalgune batean amaitzen dira; **antera** horrek hauts hori fin bat izan ohi du. ETC-prentsa

Mikroskopio konfokala erabiliz, Arabidopsis thaliana landarearen **antera** bat (organo maskulinoa) 20 aldiz handitu du Pavesek. ETC-prentsa

Giberelinarekiko erantzunak: **antera**-garapena eta ar-ugalkortasuna. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

antezedente *iz* erlazio binario bateko lehen osagaia; aurrekaria.

Gogor estudiatu behar genuen, baina ez zen erraza gogoa liburuetan atxikitzea, izenorde erlatiboak bere **antezedentearekin** jeneroan eta numeroan izan behar zuen konkordantzian Joseba Sarrionandia

---

antiabertzale *iz/izond* abertzaleen aurkako pertsona; abertzaletasunaren aurkakoa.

Liburuan barrena, Saizarbitoriak errieta egiten die abertzale itsuei, errieta ustezko **antiabertzaleei**, eta, oroz lehen, bere buruari; horregatik ez du inoiz nartzisista ematen, bere buruaz sarritan mintzo bada ere. Markos Zapiain

Euskal abertzaletasunaren alde dena eman eta **antiabertzale** bihurtu direnek ondo ulertzen dute fedearen barne etenaren leizea. Joseba Zulaika

Horra, baina, sentsibilitate **antiabertzale** neurotiko batek gutxiena jasaten dituen hitz demonio biak batera: komunitatea eta erlatibismoa!). Joxe Azurmendi

---

antiabsolutista *izond/iz* absolutismoaren aurkakoa.

Ilustratu espainol puntakoenak **antiabsolutistak** ("despota ilustratuaren" aldezleak, ordea) eta, ondorioz, frantsestiak eta Jose Bonaparteren "collabo" izan dira. Joxe Azurmendi

---

antiaereo 1 *izond* aurkarien hegazkinen ekintza indargabetzeko zeregina duena.

Jende asko toki **antiaereotara** sartu ahal izan zen, baina aterpeetan ere izan zen hildakorik. Lutxo Egia

Gordeleku **antiaereoetara** egin zutela korrika oihuka negarrez. Lutxo Egia

Buxi doktoreak, azken bonbardaketak iraun bitartean, lizunkeriaz ukitu zuen neskatxa bat babesleku **antiaereoan**, eta jaun ohoretsu batek zafratu egin zuen. Patxi Zubizarreta

Guk ez genuen sarbiderik babestoki **antiaereoetan**: artean orube zirauten eremu zabaletan kuzkurtzen ginen. Juan Garzia

Misil **antiaereoak** Etxe Zuriaren inguruetan. Berria - Harian

2 (izen gisa)

Hangoak zirela goiz askotan sentitzen nituen Heinkel hegazkinak; ateratzen zuten hotsa nahastezina zela; ikustekoa zela haien malgutasuna zerutik ia lurreraino abiada bizian jaitsi, bonbardaketen eta tiroketen imintzioak egin, eta berriro ere oso denbora laburrean altura hartzeko orduan; beharrezkoa zela malgutasun hura **antiaereoen** erasotik libratzeko: [...]. Anjel Lertxundi

Heinkel 111 asko ikusi genduzan **antiaereotik**. Lutxo Egia

---

antiaju ik **anteojo**.

---

antiakademizismo *iz* akademikotasunaren aurkako jarrera.

Edonola ere, atsegin duk populuaren **antiakademizismorako** joera. Pedro Alberdi

---

antiamerikanismo *iz* antiamerikanoa denaren nolakotasuna.

Abertzaleek kudeatzen dituzten alorrak, duela berrogei urte kasik, ETAk finkatu bost frontetan antolatzen dira oraino, kultura, ekologia, ekonomia, feminismoa, gazte mugimenduak, internazionalismoa, Palestinarekiko elkartasun itsua, **antiamerikanismo** primarioa, laborantza eta beste hainbat sail. Itxaro Borda

---

antiamerikano *izond* Estatu Batuen eta estatubatuarren aurkakoa. ik **antiamerikar**.

Gai berari heldu arren, ordea, "guztiz kontrakoa" da, Fito Rodriguezen ustez, Brownen lanak ez bezala **"antiamerikanoa** " delako."Fikzio lana izanik ere, Fitok berak jorratutako oso oinarri sendoko hipotesia du abiapuntu Faustoren itzala nobelak", Martin Anso kazetariak liburuari ezarri dion hitzaurrean azaldu duenez. Berria - Kultura

---

antiamerikar *izlag/izond* Estatu Batuen eta estatubatuarren aurkakoa. ik **antiamerikano**.

Antiamerikar Jarduerei Buruzko Batzordeak, McCarthy ospetsuaren sorgin ehiza bideratu zuen harexek, Gustavo Durani ekin zion. Edorta Jimenez

Eta koadro txiki batean, eskuinean, beheko angeluan, kronika bat, Dashiell Hammett-en konparezentziari buruzkoa, Ekintza **Antiamerikarren** Batzordearen aurrean. Iban Zaldua

---

antiautonomismo *iz* autonomismoarekin aurkako jarrera.

Uste dugu **antiautonomismoa** ezker abertzalearentzat arrotza dela, eta desbideratze baten ondorioa dela. Berria - Euskal Herria

---

antiautonomista *izond* autonomismoaren aurkakoa.

Horregatik **antiautonomistak** bihurtu dira. Berria - Euskal Herria

---

antiazido *(corpusean ez dago; ETCn **73** agerraldi) iz* azidoen eraginari kontra egiten dion substantzia.

Atzo harekin telefonoz mintzatu nintzelarik, estomakako mina zuela erran zidan, **antiazido** batzuk eta lasaigarriak hartu zituela, eta kamamila ere hartuko zuela mina baretzen saiatzeko. ETC-literatura, saiakera

Hori gertatzen denean, **antiazidoak** deritzonak hartzen ditugu. ETC-prentsa

Bakterio hori erabat eta behin betiko ezabatzeko, hainbat antibiotiko eta **antiazido** konbinatzen dituen tratamendu berezi samarra egiten da gaur egun. ETC-prentsa

Molestia horiek direla-eta medikuari kontsultatu gabe **antiazidoetara** jotzea ez da batere konponbide ona, botika horien abusuak eragin sekundarioak edo albo-ondorioak ekar ditzake eta. ETC-prentsa

Bestetik, **antiazido**, kafeina edota freskagarri gehiegi hartzeak ere kalte egin dezake. ETC-prentsa

Eta kontuz molestiak arintzeko botikekin, **antiazidoek** hipertentsioa eragin dezakete eta. ETC-prentsa

Bake, maitasun, ibuprofeno eta **antiazido** egun zoragarri hauek baliatuz, Gabonetako guilty pleasure-ez hitz egin nahi dizuet. ETC-prentsa

Tratamendu horretan, botika-konbinazio bat ematen zaio gaixoari: metranidazola, beste antibiotiko bat (tetraziklina adibidez) eta bismutoa duen prestakin **antiazido** bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kaltzio eta magnesio karbonatoak, adibidez, disolbagarritasun txikiko elektrolitoak dira; forma farmazeutiko solidoetan eta esekiduretan formulatu ohi dira **antiazido** horiek. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bihotzerrearen sintomen tratamendua edozein **antiazido** erabiltzean datza. ETC-zientzia, zuzenbidea

Magnesio hidroxidoa Mg (OH) 2 **antiazido** edo libragarri gisa erabili ohi da. ETC-entziklopedia

Baina kasu batzuetan beharrezko izaten da min kronikoarentzat tratamendua: analgesikoak, **antiazido** eta edo entzima pankreatikoak. ETC-entziklopedia

---

antibala *izond* balen aurka babesten duena.

Enboskada bat izan da eta hiltzera joan dira, garbi-garbi, hogei zipaio armaturik, txaleko **antibalekin**, lotan zegoen borrokalari baten aurka. Pako Aristi

---

antibiologiko *izond* biologikaren aurkakoa.

-Baina, zientifikoki ezagutzen ez diren gauza guztietarako, agnostizismo horrek zentzurik ez du, **antibiologikoa** baita. Josu Zabaleta

---

antibiotika ik **antibiotiko**.

---

antibiotiko *(orobat **antibiotika** g.er.)* **1** *izond* eritasunak eta infekzioak eragiten dituzten mikroorganismoak suntsitzen dituena.

Antibiotiko bat hartu eta infekzioa sendatu egiten da. Berria - Gaiak

Egun komertzializatzen den haragi asko infekzio-iturri denez, haragizko produktuek **antibiotiko** ugari txertatuak dauzkate. Edorta Agirre

1981 urtetik hunat, artatzen da gaitz hori, hiru **antibiotika** eta beste batzu gainera, osoki sendatzerainokoan. Herria

Saguei *doxicicline* **antibiotikoa** eman zieten. Berria - Gaiak

Lehenbizi jarri zizkioten **antibiotikoek** ez zuten eraginik izan: txarrera egin zuen. Xabier Olarra

GIB birusa dutenei ustez on egiten die Septrim **antibiotikoak**. Berria - Gaiak

Grisak baititut hortzak, umetan infekzio asko pasatakoa naizelako eta **antibiotiko** gehiegi hartutakoa; horregatik ilundu omen zaizkit. Ramon Saizarbitoria

Amoxicilina: **Antibiotikoa** da, eztarriko minaren eta hainbat infekzioren kontra erabiltzeko. Berria - Euskal Herria

Hori ez gertatzeko, medikuntza orokorreko sendagile batek berehala **antibiotikoak** agintzea lortu behar nuen, edozein aitzakiarekin. Joseba Urteaga

Andoainera etorri zen J.M., eta, urgentziazko sendaketa egin ondoren, **antibiotikoak** eman zizkidan. Rafa Egiguren

Hala nola eritzen diren abereei emaiten zaizkielarik **antibiotikoak**, gomendatzen dugu sei egunez ez gasnatzea horien esnea. Herria

Orain, baina, **antibiotikoak** gaitzari erraz jazartzen zaizkio. Gotzon Garate

Badira zenbait botika ezereztu edo gutxitu dezaketenak pilularen eragin antikontzeptiboa, batez ere **antibiotikoek** eta anti-inflamatorioek. Luis Elberdin

Oraingoan, nire osasun baldintza txarra eta **antibiotikoek** eragin didaten ahultasuna kontuan izanda, uste baino hobeto aritu naiz", adierazi zuen bizkaitarrak. Berria - Kirola

Europa lirain sortu berri horrek oraindik ez du debekatu **antibiotikoen** erabilera jeneralizatu edo indiskriminatua, horrelako substantzia edo botikak hartzeak populazioan ondorio tamalgarriak izan ditzakeela jakinik. Edorta Agirre

Antibiotikoekiko erresistentzia saihesteko plana hasiko dute. Berria - Gaiak

Tindufen ez dago botikarik edo **antibiotikorik** izurrite bati aurre egiteko. Berria - Mundua

Ez daukagu **antibiotikorik**, eta, hortaz [...] hortaz zorne-zorroa ebaki eta itxaron besterik ezin dugu egin. Oskar Arana

Prest ote dago **antibiotikotan** dirua xahutzeko? Oskar Arana

2 (izenondoekin)

Gaixoaren ondoan egon direnei, denbora tarte labur batean, **antibiotiko** jakin bat ematea da kimioprofilaxia. Berria - Euskal Herria

Orain elikagaiak kutsatzen dituzten xomorroekin nahiko komeria badagoenez, geroagoko legeriak zorrotzago jokatu beharko du, iruzur eta arriskuei oro har aurre egitean, **antibiotiko** ezagunak gainditzen dituzten organismoak biderkatzen ari baitira. Edorta Agirre

Merkaturatu zutenean, "oso **antibiotiko** eraginkorra" zen septrim, adituen arabera. Berria - Gaiak

Landareak izurrietatik eta biktimak intsektuen erasoetatik arma egokiez hornitu baititu naturak, **antibiotiko** sintetikoetara (hauen erabilera masibora) jo beharrik izan gabe. Edorta Agirre

Pneumonia lobularra zuen, birika baten kongestio larri bat zehazki; zainketa intentsiboen unitatean zegoen, eta oxigenoa eta **antibiotiko** zain-barnetikoak ari zen hartzen. Xabier Olarra

Europako Batasunak balizko izurrirako prestatu behar zuela esan zuen atzo Markos Kyprianou EBko Osasun arduradunak, eta botika **antibiralak** prestatzeko agindu zien EBko herrialde kideei. Berria - Harian

3 ***antibiotiko betalaktamiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Amoxizilina penizilina erdi-sintetikoa da, bakterio-kontrako **antibiotiko betalaktamikoen** taldean sailkatzen dena. Bere egitura kimikoak eta jarduerak antza handia du anpizilinarekin. ETC-entziklopedia

4 ***antibiotikoekiko erresistentzia***

Antibiotikoekiko erresistentzia saihesteko plana hasiko dute. Berria - Gaiak

Europako Batzordeak egitasmo bat hasiko du ostiral honetan **antibiotikoekiko erresistentziak** saihesteko. Berria - Gaiak

5 ***espektro zabaleko antibiotiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **46** agerraldi)*

Espektro zabaleko antibiotikoak espezie askotako bakterioen aurka eraginkorrak diren antibiotikoak dira. ETC-entziklopedia

Klinikoki oso baliagarriak dira zefalosporinak, toxikotasun gutxi izateaz gain, **espektro zabaleko antibiotikoak** baitira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kausa infekzio bat izan daitekeela susmatzen bada (sinu leizetsua edo zeharkako sinuaren tronbosiaren kasuan), **espektro zabaleko antibiotikoak** jarriko dira lehenbailehen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Espektro zabaleko antibiotiko gisa jokatzen dute, askotariko bakterio eta onddoak hiltzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Normalean proba hori ez da egiten, hori dela-eta **espektro zabaleko antibiotikoa** agintzen da. ETC-prentsa

Prozesu horri heldu dio Txintxurretak ikerketan: **Espektro zabaleko antibiotikoen** arrazoizko erabilera: pazientearen segurtasuna eta erresistentziaren problema. ETC-prentsa

Gero eta usuago ikusten dira **espektro zabaleko antibiotikoekiko** -horiek erabiltzen dira beti aurrena- erresistenteak diren bakterioak. ETC-prentsa

---

antibiral *izond* birusen garapenaren aurkakoa.

Europako Batasunak balizko izurrirako prestatu behar zuela esan zuen atzo Markos Kyprianou EBko Osasun arduradunak, eta botika **antibiralak** prestatzeko agindu zien EBko herrialde kideei. Berria - Harian

---

antibirtuoso *izond* bertutearen aurkakoa.

Horratx kontseju eder **antibirtuoso** bat. Patziku Perurena

---

antibirus *iz* birusen kontrako sendagaia.

Antibirusak saltzen dituenak birusak asmatu eta zabaldu behar ditu aurrenik. Iñaki Segurola

---

antiburges *izond* burgesiaren eta burgesa denaren aurkakoa.

Une hartan, nire inguruan ezkertiarra eta **antiburgesa** izan behar zenuen eta abertzale izanez gero, ETAren miresle. Ana Urkiza

Aita kapitalista zen, eta berak antikapitalistatzat zeukan bere burua; aita burgesa zen, eta bera, **antiburgesa**; aitak bere poltsikoan sinesten zuen, eta Sergiok printzipioetan; aitak semea injineru nahi zuen, eta semeak laketago zituen artea eta artisautza. Joan Mari Irigoien

---

anticastrista *(orobat **antikastrista**) iz/izond* Fidel Castrok 1959an ezarri zuen erregimearen marxista-leninistaren aurkakoa.

Antikastrista eta kolpistei egotzi die paramilitar kolonbiarren presentzia. Berria - Mundua

Gobernuak **anticastristak** finantzatzeari utziko dio. Berria - Mundua

Azken bi hamarkadetan Florida estatua aldatu egin da, eta dagoeneko ez dute eskuineko kubatar **anticastristek** menderatzen. Berria - Mundua

Roberto Alonso kubatar **antikastristaren** etxaldean aurkitu zituen Poliziak ustezko paramilitarrak, militarrez jantzita. Berria - Mundua

Nire zutabeen leihoak soil-soilik irakurtzen dituzten adiskide internazionalistek Miamiko mafia **anticastristak** bizioak ordaintzen dizkidala haiza ez dezaten, behintzat. Berria - Kultura

---

antichavismo *iz* Hugo Chavezek Venezuelan ezarri zuen erregimenaren aurkako higikundea.

Erraza da ikustea, **antichavismo** heterogeneo horren zati bat behintzat, egoera ezegonkortzeko tentazioa hari muzin egin edo ez sufritzen. Berria - Mundua

---

antichavista *iz/izond* Hugo Chavezek Venezuelan ezarri zuen erregimenaren aurkakoa.

Gobernua eta **antichavistak** elkarren kontra jarri dituzten erronkak. Berria - Mundua

---

antidementor *iz* dementorraren alderantzizko izakia.

Hori **antidementor** moduko bat da... zure eta dementorraren artean ezkutuarena egiten duen zaintzaile bat. Iñaki Mendiguren

---

antidemokrata *izond* demokraziaren aurkakoa.

Haatik izanak ditu kontrarioak ere azken denbora hautan hartu dituen neurri **antidemokrata** batzuen gatik. Herria

---

antidemokratiko *izond* demokraziaren aurkakoa.

Garoñako zentralari martxan eusteko era **antidemokratikoa** ere zorrotz salatu behar da: alderdi bakar baten borondatea gainerako guztien aurka dago. Berria - Euskal Herria

Gutxiengo **antidemokratikoa**, esan beharrik ez dago, gu ginen. Xabier Mendiguren Elizegi

Erakundearen ustez, Estatutu berriak Herrialde Katalanetan dagoen egoera **antidemokratikoa** mantentzea ekarriko du. Berria - Mundua

Ezkerreko alderdiek gauzatu dute gaurko Europa **antidemokratikoa**. Berria - Euskal Herria

ARALAR"Bidegabea, **antidemokratikoa** eta bakegintzaren kontrakoa da. Berria - Euskal Herria

Entzuten dut protestatzen, ETArekin negoziazio batean erakundeen berrantolaketa edo erreforma politikorik onartzea, indarkeriaren txantaiari amore ematea dela, **antidemokratikoa** dela, etab. Joxe Azurmendi

Beraz, epaiketa egite hutsa oso larria da, **antidemokratikoa**, areago, egungo egoera politikoa kontuan hartuta. Berria - Harian

Bat egin dugu manifestazio honekin, besteak beste, uste dugulako 18/98 auzia **antidemokratikoa** ez ezik, astakeria juridikoa ere badela. Berria - Harian

Ezkertiartasuna ote da, errotik iraitzi beharra dagoen biolentziaren kausa gaiztoa, **antidemokratikoa**, etab.?... Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **antidemokratiko baten** (3); **antidemokratiko hau** (3); **egoera antidemokratiko** (6); **estatu antidemokratiko bati** (3)
>
> **antidemokratikoa da** (7); **antidemokratikoa dela** (5); **antidemokratikoa delako** (5); **antidemokratikoa salatu zuen** (3); **egoera antidemokratikoa** (8); **erabat antidemokratikoa** (3); **guztiz antidemokratikoa** (4); **izaera antidemokratikoa** (4); **jarrera antidemokratikoa** (5)
>
> **antidemokratikoak direla** (3); **erabat antidemokratikoak** (3); **hauteskunde antidemokratikoak** (3)
>
> **antidemokratikotzat jo** (3)

---

antidemokratismo *iz* antidemokratikoa denaren nolakotasuna.

Agian, aitzakia faltsuak saihestuz (hauteskundeen **antidemokratismoa**, abstentzioa, alderdien biderkatzea) zinezko galdeak pausatzeko unea hurbil da. Itxaro Borda

---

antidepresibo 1 *izond/iz* depresioaren aurkakoa.

Argazkian asko erreparatuta bakarrik ikus zitezkeen erretratua atera baino lehen gaumahaitxotik zarpailki apartatuak izan ziren pastilla **antidepresiboen** dozenaka kartoizko kaxa eta plastikozko ontzi. Harkaitz Cano

Esan nahi dudana da antsiolitikoen, lasaigarrien eta pilula **antidepresiboen** dosia apurka-apurka jaitsi beharrean zegoela, apurka-apurka beregana zezan inguruarekiko interesa. Joan Mari Irigoien

Informeak, azkenean, diagnostiko bat zekarren, baita gaitzari aurre egiteko sendagaiak ere: antsiolitikoak eta lasaigarri **antidepresiboak**. Joan Mari Irigoien

Antsiolitikoen eta **antidepresiboen** pilula-dosia ordurako erdira jaitsia zuen arren -edo gutxiagora, beharbada-, ongi erantzuten ari zitzaion tratamenduari. Joan Mari Irigoien

Etxea apaintzeko dekoratzaileari deitzen diogu, arazoak konpontzeko psikologoen beharra dugu, psikiatrei beldurra ere galdu genien, goibelaldiak eramateko **antidepresiboak** dauzkagu, lo egiteko pilulak... eta bizitzako aldaketa bakoitzari bere terapia erantsi diote. Pako Aristi

Ordainetan, aniztasunezko mundu libre batean biziko da, botikan kolore guztietako **antidepresiboak** erosteko aukera ematen duen mundu libre batean. Iñaki Segurola

Astean behin psikoterapia saio bat eginez eta **antidepresiboen** laguntzarekin, laster sendatuko omen zen. Patxi Iturritegi

Arratsaldean ere txokolatea franko jan dut (Teresaren esanetan, **antidepresiborik** onenetakoa). Patxi Zubizarreta

2 *pilula antidepresibo*

Esan nahi dudana da antsiolitikoen, lasaigarrien eta **pilula antidepresiboen** dosia apurka-apurka jaitsi beharrean zegoela, apurka-apurka beregana zezan inguruarekiko interesa, eta aurkitu, era berean, bere tokia bizitzan eta munduan, gutxieneko oreka baten barnean. Joan Mari Irigoien

---

antidiuretiko 1 *izond* gernua eratzea eragozten duena.

Odolaren kontzentrazioa eta bolumena kontrolatzeko, hormona **antidiuretikoa** edo ADHa da mezularia. Irene Aldasoro

2 *hormona antidiuretiko*

Odolaren kontzentrazioa eta bolumena kontrolatzeko, **hormona antidiuretikoa** edo ADHa da mezularia. Irene Aldasoro

---

antidogmatiko *izond* dogmatismoaren aurkakoa.

Oraingoz teoria soziologikoaren maila objektiboa gailendu ez duen erlatibizazioahalegin horretan jarrera **antidogmatikoa** ere ageri da maiz. Askoren artean

Ez dago, ordea, kontraesanik: nire baitara bildurik burututako idazteko ekintza **antidogmatikoa** da, galdera egiteko premiatik sortzen dena baita: ez dago deus ziurrik

pentsatzen jarri nahi duenarentzat. Anjel Lertxundi

---

antidoto **1** *iz* pozoi jakin baten ondorioak indargabetzen dituen gaia gaia.

Israelgo agenteek 1997. urtean, Jordanian, bera ere pozoitu zutela gogora ekarri zuen Mashaik Jordaniako errege Husseinek eskatuta, **antidotoa** eman ziotelako atera zen bizirik. Berria - Mundua

2 irud/hed

Ildo horretan, Europako mugimenduen artean globalizazioaren kontrako mugimendua izango litzateke aurreneko ikurra: krisiaren **antidotoa** eta bakearen aldeko mugimendua izan da. Berria - Mundua

Frantziskori entzutea eta irakurtzea **antidoto** ezin hobea izan liteke hitzen degradazioari aurre egiteko, hainbat hitz eta kontzepturi beren distira eta egia bihurtzeko. Askoren artean

Gisèlleren etxetik hartu dut liburua gaur goizean, ia konturatu gabe: banekien itxaronaldi luze samarra egin beharko nuela, eta asperduraren aurkako **antidoto** gisa lapurtu diot. Iban Zaldua

Mandragora **antidoto** gehienen funtsezko osagaia da. Iñaki Mendiguren

Atergabe ari zen marabuta lanean, **antidoto** baten bila. Joxan Elosegi

Iraganaren ikur gertatzen dira hondakinak; edozein proiektu eta asmoen pretentsio behin-betikoek zer nolako hareazko oinarriak zituzten erakusten digute; mitoaren, ametsaren, desiraren, grinen aurkako **antidoto** bortitzak dira. Joseba Zulaika

"Barrea erabiliko dute heriotzaren **antidoto** moduan", zuzendariaren arabera. Berria - Kultura

Arriskugarria den guztiak du bere **antidotoa**; maitasunaren ondoan, prostituzio etxea; askatasunaren ondoan, kartzela. Josu Zabaleta

Ahanztura ez al da, askotan, barrenean azkura egiten digun itxaropen baten aurkako **antidotoa**? Pako Aristi

Nola ez jabetu ezen gure elikagai ziren kimika eta fisika haiek, bestela ere janari premiazkoak izateaz gainera, faxismoaren aurkako **antidotoa** zirela, berak eta biok bilatzen genuenez, zeren argi eta zehatzak baitziren, pausoz pauso egiaztagarriak, eta ez gezurrez eta hutsalkeriaz josiak, irratia eta egunkariak ziren bezala? Juan Garzia

Le Détonant, erosi *Le Détonant*, faxisten eta salduen kontrako **antidotoa**! Anjel Lertxundi

Mundu-ekonomiak, kapitalista izanik, sistematikoki ekoitzi ditu, trukeekin batera doan teknologiaren zabalkundeaz, bateratze politikoaren kontrako **antidotoak**. Koro Navarro

Satira, sormena, ironia, irudimena... horiexek dira gerrilla komunikatiboaren osagaiak; horixe **antidotorik** eraginkorrena egunero bonbardatzen gaituzten milaka mezu amorfo eta polimorfoen aurrean. Txema Ramirez de la Piscina

---

antiekologiko *izond* ekologiaren printzipioen aurkakoa dena.

Errausketa osasunerako "kaltegarria", **"antiekologikoa** " eta oso garestia dela berretsi zuen. Berria - Euskal Herria

Gauza **antiekologikoagorik**! Berria - Euskal Herria

---

antiekologismo *iz* joera edo jarrera antiekologikoa.

Nola izango da, bada, aukera bakarra **antiekologismoaren** ikurrik handiena? Nork esan dituen ikusita, ordea, merezi dute polikiago irakurtzea. Berria - Gaiak

Errealitate "handiaren" aurrean, hau da, gerren, torturen, indarkeriaren, multinazionalen, arrazismoaren, industrialismoaren, gorputzaren hipersakralizazioaren, materialismoaren, **antiekologismoaren** eta horien guztien aurrean, idazlearen ahotsak ezer gutxi lor dezake. Ana Urkiza

---

antiekonomiko *izond* ekonomiaren printzipioen aurkakoa dena.

Jokabide zentzuduna ei deritzo, **antiekonomikoa** izan arren, zinez jeniala, eta sakona (*profond,* dio berak). Joxe Austin Arrieta

---

antielektroi *iz* karga positiboa duena elektroia.

Gertatu ez balitz gehixeago izatea elektroiak **antielektroiak** baino eta quarkak antiquarkak baino, partikula arruntak, materiaren oinarri-oinarrian daudenak, absente leudeke gaur egun unibertsotik. Juan Garzia

---

antiemetiko *izond/iz* oka edo gorakoa eragozten duena.

Kalamuak sor ditzakeen eragin guztien artean gaur egun terapeutikoki erabilgarrienak eta ikasienak bi dira: eragin **antiemetikoa** eta hiesa edo minbizia duten gaixoengan jangura handitzea. Berria - Harian

Ikerketa batzuetan kalamua eta **antiemetikoak** alderatu izan dira: kalamuak orduan merkatuan zeuden **antiemetikoen** ahalmen **antiemetiko** bera zuela frogatu zen. Berria - Harian

Tratamenduan jarri dute **antiemetiko** eta antitermikoekin; dieta eta ura. Berria - Kirola

Kontua da orain dela asko egin zela ikerketa hura eta gaur egun kimioterapiari aurre egiteko ditugun **antiemetikoak** oso bestelakoak direla. Berria - Harian

· **Antiemetikoa**: Kimioterapia tratamenduan dauden gaixoengan tratamenduak eragiten duen goragalea saihesten du kalamuaren TCH substantziak. Berria - Harian

---

antierlatibista *izond* erlatibismoaren aurkakoa.

Izan ere, aniztasun historiko edo kulturala onartzea bat etor daiteke ikuspuntu erlatibista batekin zein **antierlatibistarekin**. Askoren artean

---

antierlijioso *izond* erlijioren aurkakoa.

San Martin), eta jarrera **antierlijiosoetara** ez gutxitan. Joxe Azurmendi

---

antierotiko *izond* erotismoaren aurkakoa.

'Ipuin **antierotikoa'** eman nion azpititulua, halakoxea baita izan ere. Xabier Mendiguren Elizegi

---

antierrepresibo *izond* errepresioaren aurkakoa.

Balantzearen datuekin parez pare, Euskal Herri osoan gertaerei emaniko erantzuna ere azpimarratu zuen Askatasunak, "balantze **antierrepresiboak** kezkari baikortasuna"

jartzen diola iritzita. Berria - Euskal Herria

Beste aldean, balantze **"antierrepresiboa"**. Berria - Euskal Herria

---

antierrepublikano *izond* errepublikaren aurkakoa.

Sinn Feinen eta errepublikanoen kontrako kideek osatzen dute: **antierrepublikanoa** den politikari ohi batek, John Alderdicek, eta inteligentzia zerbitzuetan aritutako beste hiru **antierrepublikanok**. Berria - Mundua

Herri honetan aroa **antierrepublikanoa** ote? Askoren artean

Alderdi errepublikanoko bigarren buruaren esanetan, IMCren historia, osaketa eta "agenda politiko eta **antierrepublikanoa**" direla-eta, haren txostenetan agertutakoa gutxiestea eta eszeptiko hartzea "zuzena" da. Berria - Mundua

---

antiesklabotza *iz* esklabotzaren arbuioa.

Akabo ziren eztabaidak, istilutsuak nahiz lasaiak: Esklabo Iheslarien Legea, Kokapen-Kuota, Jainkoaren Bideak eta beltzentzako elizaulkiak; **antiesklabotza**, manumisioa, kolorearen araberako bozketa, errepublikarrak, Dred Scott, liburuetatik ikastea, Sojournerren zalgurdi gurpil-handia, Delaware Ohioko Emakume Beltzak, eta beste gai garrantzitsu guztiak, jendea eserita edukitzen zutenak. Anton Garikano

---

antiespainiar *izond* Espainiaren edo espainiarren aurkakoa.

Sekula bizi izan dudan elkarretaratze **antiespainiar** handiena izan zen. Berria - Kirola

---

antiespainol *izond* antiespainiarra.

Baroja, alderantzi, **antiespainol** amorratua zen. Joxe Azurmendi

Esaldi hau, geroago, abertzaletasunaren aurka esandakotzat erabili izan du, baita Idazle latinoamerikarren abertzaletasun **antiespainolaren** aurka ere. Joxe Azurmendi

---

antiespezismo *(corpusean ez dago; ETCn **83** agerraldi, horietatik **78** azken sei urteetan)* *iz* gizakiz haragoko animalien eskubideen aldeko mugimendua. ik **animalismo**.

Eta norabide garbi bat du, gainera: **antiespezismoarena**. ETC-prentsa

Ekologiaren bidetik ailegatu zen **antiespezismora**, eta **antiespezismo** horren ondorioz erabaki zuen, 2013ko udan, ebakuntza egitea. ETC-prentsa

Bere hitzaldian, askatasunaren eta eskubideen aldeko borroka sozialak gogoan izan zituen Larunbek, eta **antiespezismoaren** kausarekin lotu zituen horiek denak. ETC-prentsa

Gerora egin dut **antiespezismora** bidea. ETC-prentsa

Bestalde, animalien eskubideak edo **antiespezismoa** kontzeptu antropozentristatzat definitzen dituzu. ETC-prentsa

Espeziearen araberako diskriminazioari aurre egitea da **antiespezismoaren** xedea. ETC-prentsa

Gizarte justu eta berdintsuagoa lortzeko, feminismoaren eta **antiespezismoaren** borrokak uztartzea proposatu du ekintzaileak. ETC-prentsa

Irakurketa hori egiten du **antiespezismoak**, eta hori ikusaraztea eta iraultzea du borroka. ETC-prentsa

Saguesek zehaztu zuen **antiespezismoa** "animalien oinarrizko interesak aldarrikatzea eta animalien aurkako zapalkuntza borrokatzea" dela. ETC-prentsa

30 bat lagun elkartu dira Errekaleorreko gaztetxean **antiespezismoari** buruz eztabaidatzeko. ETC-prentsa

Borroka esparruetara eraman behar dugu **antiespezismoa**, bertze borroketara hurbildu. ETC-prentsa

---

antiespezista *(corpusean ez dago; ETCn **208** agerraldi, horietatik **201** azken sei urteetan)* **1** *izond/iz* gizakiz haragoko animalien eskubideen alde diharduena. ik **animalista**.

Baina, ikusita gizakiak bertze animaliak nola erabiltzen dituen, pentsatzen hasi nintzen, eta nire baitan berdintasunaren ideia garatzen, ideia **antiespezista**, alegia. ETC-prentsa

Antiespezistatzat jo du bere alderdia, baina "lor daitezkeen helburuei" eman die lehentasuna. ETC-prentsa

Han izan dira Askekintza Donostiako talde **antiespezistako** kideak ere, PACMA alderdi animalistako eta Zaragozako Vegan Hope animalientzako babeslekukoekin batera. ETC-prentsa

Bizi garen sisteman, gizaki oro dago zapalduta, eta zapaltzaile da, aldi berean; **antiespezista** naiz, eta, ikuspuntu horretatik, haur bat izateak eragiten die jateko, janzteko eta abar erabiltzen dituzten animaliei. ETC-prentsa

PACMA alderdiak atzo eginiko elkarretaratzeaz gainera, borroka **antiespezistak** beste zenbait ekinaldi izanen ditu datozen egunetan. ETC-prentsa

Antiespezistak gara eta herri mailan lan egin behar dugu, animalia guztion parekotasuna eta animaliak erabili gabeko festa eredu bat aldarrikatzeko. ETC-prentsa

Horretarako tresna gisara, beganismoa sustatzen du mugimenduak: kide **antiespezistek** ez dute kontsumitzen animalia jatorriko produkturik, ez elikadurarako, ez eta beste ezertarako ere. ETC-prentsa

Helburu hori daukate talde **antiespezistek**, baina, oraingoz, oso bestelakoa da egoera. ETC-prentsa

Antiespezista da, eta aktibismo politikarako espazio bilakatu nahi du bere sukaldea. ETC-prentsa

Antiespezista naizen aldetik, berriz, abeltzaintzaren atzean dagoena kolokan jarri bertzerik ezin dut egin, abeltzainarentzat animalia baliabide ekonomiko hutsa izaten delako. ETC-prentsa

Oso garrantzitsuak diren itaunketak dira, diskurtso **antiespezistak** erdigunean kokatzen dituena, gainera, ez baita marjinala. ETC-prentsa

Euskal Herriko kolektibo **antiespezistek** manifestaziora deitu dute gaur, Bilbon. ETC-prentsa

Balio feministak, antiarrazistak, autogestiokoak errespetatzen dituzte, eta, aspaldi honetan Espainiako Estatuan, gero eta gehiago dira **antiespezistak** eta transfeministak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Piztiak Bilboko konpartsa bat da. Konpartsa hau **antiespezista** da eta animalia sufrimendurik gabeko jai herrikoiak, partehartzaileak eta parekideak aldarrikatu nahi ditu Bilboko esparrurako. ETC-entziklopedia

Antiespezista intersekzionalek diote kapitalismoa patriarkatua, kolonialismoa eta espezismoan oinarrituta sortzen dela, jabetza pribatuari esker. ETC-entziklopedia

2 ***transfeminismo antiespezista*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Transfeminismo antiespezista transfeminismoa eta antiespezismoa lotzen dituen borroka ildoa da. ETC-entziklopedia

---

antiestetika *iz* gauza ez estetikoen multzoa.

Izaera sozialaren presioak estetikaren menera mugitzera bideratzen ditu (estetika oreka, neurri, proportzio eta azalekoaren aldaretzat ulertuz), eta bestetik, norbanakoaren nortasun horrek **antiestetikaren** mundurantz lerratzen ditu pertsonaiak (desorekatua, gehiegikeriak jota, proportziorik gabea, sakonerari begiratzen dionarekin lotuz

antiestetika). Berria - Kultura

---

antiestetiko *iz* estetikaren kontrakoa, edertasunik ez duena.

Eta lujoa da berdin-berdin leku itsusi bati begira dagoen leihatea, edo patio **antiestetiko** bati begira dagoena, edo Kafkaren etxera begira dagoena. Unai Elorriaga

Eta ideia ondo zegoen, baina ez zen perfektua ere: koadroen ondoan jarri zuten botoia guztiz **antiestetikoa** zelako edo, beste era batera esanda, berdea eta grisa zelako. Unai Elorriaga

Paradisu bat zena zementuz ito baitzuten, mila etxe eta beste hainbat dorre egiten zituztela, zabortegiak eta autopista, zentro komertzialak eta harrobiak, modurik **antiestetikoenean**. Joan Mari Irigoien

Baina, klaro, ez da batere kategoriakoa esatea "ikaragarri gustatzen zait niri musika zeltikoa" eta, are gutxiago, ondoren hiruzpalau kantari **antiestetikoren** izenak aipatzea. Unai Elorriaga

---

antieuskaldun *izond/iz* euskaldunen aurkakoa.

Egunkari **antieuskaldun** bat zekarren eskuan. Koldo Izagirre

Salaketa erreakzionarioa zen batzuetan, urliak ez zuela erlijioa ematen; barregarria bestetan, sandia biluztu egin zela ikasleen aurrean; tristea beti ere, berendiak euskara batua erabiltzen zuela. Oro har, "gorria zen edonor **antieuskaldun** bezala ikusarazi izan zen". Joxerra Garzia

Ez nolanahiko gatazkak, gainera, ikastolak publiko bihurtzearen alde atera zen jendea, holakoetan sistematikoki gertatzen denez, **antieuskaldunen** zakuan sartzen ahalegindu baitziren. Pello Salaburu

Arendtek, judaismotik ihesi beste muturreko talde sozial edo politiko batekin identifikatu nahi izan duten juduen fenomenoa (eta juduon "autogorrotoa") aztertu dute - euskaldunon ihesi **antieuskaldunenaren**. Joxe Azurmendi

---

antieuskalduntasun *iz* euskaldunen aurkako jarerra.

Ekintza terroristak salatzea, pribatuan berean, zenbaiten ustez **antieuskalduntasunaren** zeinu barkagaitza bilakatua da. Itxaro Borda

---

antieuskaltzain *iz* euskaltzainen aurkako pertsona.

Antieuskaltzain amorratuak gara; guretzako hitzak ez dira apaletan altxatzeko hartxuri pollitak; geure hatsez edo herdez zikindutako kristal biziak baizik; eta haiexekin osatzen dugu geure ispilua, eta hartan geure burua sumatzean, harrotu, nazkatu, edo ikaratu egiten gara. Patziku Perurena

---

antifaxismo *iz* faxismoaren aurkako jarrera.

Italian, esaterako, era askotako borrokak izan dira: **antifaxismoa** batetik, langile borroka bestetik. Berria - Kultura

Ezerezetik hasi beharra zegoen, gure gisako **antifaxismo** bat "asmatu", kimutik sortu, sustraietatik, gure sustraietatik. Juan Garzia

---

antifaxista 1 *izond* faxismoaren aurkakoa.

Brecht, utopia sozialaren predikaria eta Benjamin bezalako pentsalari **antifaxisten** maisua, euskal ezkerraren autore mina izana ere bada, Laboak luzaro kantatua. Joseba Zulaika

Politikaria, militante **antifaxista**, Turatiren ihesa antolatzeagatik atxilotua eta auziperatua. Fernando Rey

1961eko urtarrilaren 22an Santa Maria portuges transatlantikoa bahitu zuten 24 ekintzaile **antifaxistek**, Venezuelako La Guaira portuan, xede nagusi argi batekin: Salazar eta Francoren erregimen diktatorialen aurkako salaketa zabaltzea munduan. Berria - Kultura

Izagirreren hitzetan "gure lehen kantari **antifaxista**" izan zen Lopetegi. Berria - Kultura

Egon Erwin Kisch kazetari txekiarrak *El mono azul* astekari **antifaxistan** kolaboratzaile gisan zebilela ezagutu zuen Pablo. Berria - Kultura

Hiru urteko kartzela-zigorra ezarri zioten 1933an, borroka **antifaxistan** parte hartzeagatik. Fernando Rey

Are, polemika **antifaxista** bizian, bai marxistek eta bai demokrata liberalek, beste gabe faxistatzat edo faxismoaren bide-urratzailetzat jo izan dituzte askotan horrelakoak. Joxe Azurmendi

Otelo Saraiva de Carvalho kapitaina buru zuen matxinadak mugimenduaren izaera **antifaxista** aldarrikatu zuen. Berria - Mundua

GRAPO Urriaren Leheneko Erresistentzia Talde **Antifaxistak** iraultza zerga-ren helburua "kapitalistek lapurtutako dirua langileei itzultzea" zela azaldu, eta hura ordaintzen ez zutenen aurka egingo zuela ohartarazi zuen atzo komunikatu baten bidez. Berria - Mundua

Harekin batera atxilotuta eraman zuten emakumezkoaren izenik ez zuten eman, ezta GRAPO (Urriaren Lehena Talde Iraultzaile **Antifaxistak**) taldearekin izan dezakeen harremana zehaztu ere. Berria - Euskal Herria

Familia katoliko **antifaxista** errepublikano batean jaio nintzen. Berria - Harian

1974ko maiatzaren 28a: Faxistek bonbaz eraso zioten manifestazio **antifaxista** bati: zortzi hil eta 94 zauritu eragin zituzten. Berria - Mundua

Egon Erwin Kisch kazetari txekiarrak El mono azul astekari **antifaxistan** kolaboratzaile gisan zebilela ezagutu zuen Pablo, eta esan omen zion, bere herrian, izen bera zeukan beste idazle bat bazegoela. Berria - Kultura

Parisen "Justizia eta Askatasuna" mugimendu **antifaxista** sortu zuen. Fernando Rey

Berriz libre gelditu zenean, Milanen mugimendu **antifaxista** klandestinoa antolatu zutenetako bat izan zen. Fernando Rey

15 urte zituenean atxilotu zuten jarduera **antifaxistengatik**. Fernando Rey

2 (izen gisa)

1924an, Matteottiren hilketaren ondoren, Carlo Rosselli eta Gaetano Salvemini **antifaxistei** lagundu zien eta Non mollare (Ez etsi) aldizkari klandestinoa argitaratu zuen. Fernando Rey

Mussoliniren oheburuko medikua, **antifaxista** bat, **antifaxistei** laguntzeko prest zegoena. Fernando Rey

Denbora joan ahala, gero eta **antifaxista** gutxiago zeuden, eta gure aitak baten bat bazela aditzen zuenean, berehala pozten zen. Fernando Rey

Ameriketako Estatu Batuak, Erresuma Batuak, Frantziak, Alemaniako eta Italiako **antifaxistek** eta nazismoaren kontra borrokatu zuten guztiek emandako laguntza "beti" gogoratuko duela esan zuen. Berria - Harian

Garai heroikoak omen ziren haiek, non mundua faxisten eta **antifaxisten** artean banatzen zen argi eta garbi, eta sasoi haien inguruan argumentu ezin ederragoak sortu ahal dira gure inguruko inori ziria sartu gabe. Berria - Kultura

Eta bestetik, gure aitak ez zuen uste Italian artean iraultzailerik izan zitekeenik, uste baitzuen bera zela Italian gelditzen zen azkeneko **antifaxistetako** bat. Fernando Rey

3 (hitz elkartuetan)

Parisko erbesteratuekin elkar hartutako **antifaxista** talde bat atzeman dute Turinen. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
militante antifaxista (3); **mugimendu antifaxista** (3)

antifaz *iz* aurpegi-mozorroa; begi-mozorroa.

Bigarren txapeldunak, **antifaz** eta guzti: "Amen". Bernardo Atxaga

Madrilerako bidean eta polizia egoitzetan eman nituen egun guztietan, ziegan nengoenean izan ezik, begiak **antifazarekin** estalita nituen. Berria - Euskal Herria

Beatriz Viterbo, profilez, koloretan; Beatriz, **antifazez**, 1921eko ihauteetan. Juan Garzia

Gauez eta autoz eta **antifaz** beltz bat begien parean ipinita. Karlos Linazasoro

antifilosofiko *izond* filosofiaren aurkakoa.

Guztiz-guztiz negatiboki, Herder eta Hegel-en pentsamenduaren endekapen **antifilosofikotzat** joz, historizismo positibistaren Volksgeista epaitzen du. Joxe Azurmendi

Barrez lehertu zen gela osoa, eta nik ere ozta-ozta eutsi nion barregurari, baina, egia esan, negargarritik gehiago du filosofia hain modu **antifilosofikoz** irakatsi beharra. Joxerra Garzia

antifona *iz* salmo baten hasieran edo amaieran, edo ahapaldien artean esaten edo abesten den errepika.

Egitaraуean barrena, V. mendetik eta XIV. mendea arte doazen ereserki eta **antifonak** entzun genituen estilo melismatikoan, hots, silaba batekin nota asko egiten den horietakoa. Berria - Kultura

San Frantziskoren zauriekiko begiruneagatik gorazarre, **antifona** eta prosa eder eta deboziozkoak konposatu zituzten. Askoren artean

Gorespenok otoitzarekin amaitu ostean, *Santa Maria* **antifona** esaten zuen. Askoren artean

Berak eratu zituen San Frantziskoren omenezko Plaude turba paupercula gorazarrea eta *Coelorum candor splenduit* **antifona**. Askoren artean

Salmoa bukatu eta gero Santa Maria Birjina **antifona** esaten zuen. Askoren artean

Oso berea du Frantziskok idazkian erabiltzen duen hizkera: NekOf-aren **antifonan** Maria Birjinari ematen dizkion titulu berak ematen dizkie hemen klaratarrei. Askoren artean

San Andres apostoluaren ofizioa, Maitinetako bosgarren **antifona**. Askoren artean

Notkero Balburo beneditarrari (912) egotzitako **antifona** baten lehen bertsoa. Askoren artean

Liturgia erromatarretik hartutako **antifona** dugu hau. Askoren artean

Kapitulu jeneral honetan bertan banatu zitzaizkien probintziei Ordenako brebiario eta **antifona**-liburu bereziak. Askoren artean

Pazkoaldiko III. igandeko mezako sarrera-**antifonaren** lehen hitza. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bezperetan antifona** (4); **konpletetan antifona** (4); **maitinetan antifona** (4)

antifrankismo *iz* Franco generalaren erregimenaren aurkako oposizioa.

Demokraziaren baloreak eta usadio politiko, kultural eta moralak kontuan hartuta, oroitzapenaren programa bat martxan jartzea beharrezkoa dela uste du elkarteak, **"antifrankismoari"** omenez. Berria - Euskal Herria

antifrankista 1 *izond* Franco generalaren erregimenaren aurkakoa.

Gerra Zibilean amaren familia **antifrankista**, antikarlista baitzen. Ana Urkiza

Sei emakume **antifrankistari** buruzko lana da, Susana Koskak zuzendua. Berria - Kultura

Itxuraz, intelektual **antifrankisten** biltoki; zinez, lagun hurkoa larrutzeko eginahalen eszenatoki. Pedro Alberdi

Munduko Bigarren Gerra amaitu berri, Mexikoko euskaldun **antifrankistek** euren bizimodua aurrera ateratzen nahikoa lan badute ere, esperantzaren dantzan bizi dira. Edorta Jimenez

Bigarrenari ez zitzaion militantzia politikorik ezagutzen, eta horrexegatik hautatu zuten Puigekin batera hiltzeko, borroka **antifrankista** "gaizkile arrunten" parean jartzeagatik iritzi publikoaren aurrean. Berria - Kultura

Joxe frontoiko batzarretan ibilia zen mugimendu **antifrankistaren** garaian, nahiz eta ez zen nabarmendu beste batzuk bezala, erdi ezkutuan ari baitzen. Juan Kruz Igerabide

Euskadiko Filmategiari eman zion aspaldi bere artxibo osoa, baina han ez da halakorik ageri, ez da Francisco Franco gure herrian egon zeneko plano bakarra ere ikusten, eta apez zahar honen makurtasun **antifrankista** ezagututa, oso logikoa da bere kameraren duin ez hartzea, zeluloide metro erdia gastatu nahi ez izatea haren filmatzen. Koldo Izagirre

Parisen geunden guztiok **antifrankistak** ginen, nola ez, eta nik ere nire burua **antifrankista**, ezkertiar eta euskaldun definitu nuen. Ana Urkiza

2 *mugimendu antifrankista*

Hitzaldira jende ugari azaldu zen; **mugimendu antifrankistan** jardundako lagun asko, frontoiko batzarretan ibiliak; leporaino bete zen sotoa. Juan Kruz Igerabide

Joxe frontoiko batzarretan ibilia zen **mugimendu antifrankistaren** garaian, nahiz eta ez zen nabarmendu beste batzuk bezala, erdi ezkutuan ari baitzen. Juan Kruz Igerabide

antifrantses *izond* Frantziaren eta frantsesen aurkakoa.

Garaiko giroaren adibide moduan, Alborg-ek -espainolen konplexu eta amorru **antifrantsesa** berak aipatzen ditu- hau dakar Gallardo-ri buruz, eta liberal porrokatua zenuen: [...]. Joxe Azurmendi

Kontua da, liberal espainolek, herriaren filosofia bat edukitzeko (eta hau gerra **"antifrantsesean"** ari zen tenorean), tresneria teoriko frantsesa besterik ez zutela, eta hori mozorrotzeko, Erdi Aroko teorietara jo dutela. Joxe Azurmendi

Baina liberal asko ez al da politikoki **antifrantsesa** izan? Joxe Azurmendi

antifrasi *iz* figura erretorikoa, esan nahi denaren kontrakoa esatean datzana.

Antifrasia, iraultze semantikoa, beharrak sortutako artea da, benetan denaren eta uste denaren kontrakoa esateko. Iñigo Aranbarri

antifundazionalista *izond*

Semantizista gehienena bezala, van Fraassenen zientziaren irudia **antifundazionalista** da (vs ikusmolde estandarra), antinaturalista (vs enpirismo quinear eta kognitiboa, bai

eta vs naturalismo sozio-historikoak) eta konstruktibista (ereduen eraikuntza azpimarratuz eta ez errealista zientifikoak egiten duen moduan fenomeno behagarrien arteko erregulartasuna). Askoren artean

---

antigai *iz* antimateria.

Epe ahalik laburrenean **antigaiaren** gerizatzeko zulo beltz sakona jazarri beharrik gabe kolpeak hartzen dituen izate uherra, oinazea saihestuz, mina baztertuz, prokreatzea eta produkzioa segurtatzeko tresna kontzientea bihurtzea liteke xedea, arrangura eta kezka existentzialak ezabatuz. Itxaro Borda

---

antigene *iz* **

Bereziki, halako batean lortu zelarik, Jean Dausset-en lantaldeari esker batik bat, HLA histokonpatibilitate-**antigeneak** bere baitan biltzen dituen kromosoma-eskualdea aztertzea, ikusi zen nola, HLA geneen konbinazio jakin batzuk zeramatzaten banakoak beste batzuk baino errazago jotzen zituen eritasun batek edo besteak. Juan Garzia

---

antigeniko *(corpusean ez dago; ETCn **120** agerraldi)* **1** *izond* antigenoei dagokiena.

Eboluzio genetikoan gizakiok gainerako bizidunengandik zenbat eta urrutiago joan, orduan eta desberdinagoak bilakatzen zaizkigu proteinak, orduan eta **antigenikoagoak**, gaixotzeko errazagoak. ETC-prentsa

Ume txiki batek jasaten duen estimulu **antigeniko** kopurua -airearen bitartez, elikagaien bitartez...- eskerga da, eta txertoek eragindako estimulua tantatxo bat baino ez da itsaso horren barruan. ETC-prentsa

Gripearen birusak eta familia horretako beste birus batzuek aldaketa **antigeniko** deritzon fenomenoa dute: genetikoki ezberdinak diren eta zelula bera infektatu duten bi anduiren RNA genomaren zatiak elkartu eta berrantolatu egiten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tankera horretako gai polimerikoek propietate **antigenikoak** izaten dituzte animalietan, eta, dirudienez, zeresan garrantzitsua dute gizakiok anpizilinaren aurrean ditugun erreakzio alergikoetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zelula-nukleoaren osagai **antigenikoen** kontra bideratutako antigorputzak dira, zeinak arratoien gibel- edo giltzurrun-ehunetako ebaketen gaineko immunofluoreszentzia bidez hautematen baitira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bakterio desegokien hazkuntzak, disbiosia dagoenean, osasun-ondorio negatiboak ekar ditzake, bakterio horiek substantzia kaltegarriak sortzen dituztelako haien metabolismoaren ondorioz, edo haien egitura **antigenikoek** gure immunitate-sistemaren funtzionamendua asaldatzen dutelako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haiek ugaldu egiten dira, eta milaka eta milaka ondorengo-zelula klonal eratzen dituzte, guztiak ere espezifikotasun **antigeniko** berekoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eritrozitoek, bakterioek, birusek, gorputzeko ehunek... antigeno moduan jarduten dute, haien azaleetan propietate **antigenikoak** dituzten molekulak dauzkatelako. ETC-entziklopedia

Bakteriar identifikazioan saio biokimikoek eta **antigenikoek** garrantzi handia badute ere, Gram tindaketak baieztatu dezake aurreko frogek emandako diagnostikoa. ETC-entziklopedia

2 ***determinante antigeniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Antigeno ez-proteiko askok, hala nola polisakaridoak eta lipidoak, berdinberdinak diren **determinante antigeniko** asko dituzte (epitopoak), eta epitopo horiek gai dira B zelula bakoitzean molekula antigeno-errezeptore askori lotzeko eta B zelularen aktibazio-prozesua abiarazteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Determinante antigeniko eta antigorputzaren egitura tridimentsionalak osagarriak dira. Horrek errazten du haien arteko lotura (entzima eta substratoaren antzeko lotura fisikoa da epitopo baten eta antigorputzaren artekoa) ETC-entziklopedia

3 ***mimetismo antigeniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Era berean, bakterioek edo birusek sortutako hainbat infekziok gaitz horiek piztu litezkeela susmatzen da, **mimetismo antigeniko** izeneko fenomenoaren bidez. Traumatismo batzuek ere, antza, martxan jar dezakete gaixotasun autoimmune baten ibilbidea. ETC-entziklopedia

---

antigeno **1** *iz* abere organismo batean txertaturik erreakzio inmunitarioak eragiten dituen gaia.

Beta-amiloide proteinaren **antigenoa** da txertoaren osagai nagusia. Berria - Gaiak

Saguen burmuinean ziztatu ostean, antigorputzak sortzen ditu **antigenoak**, eta horrek plaka sortzea eragozten du. Berria - Gaiak

Gaur egun, ipurtestea ukituz eta prostatak sortutako **antigenoa** neurtzeko odol analisi baten (PSA) bidez egiten da gaitzaren diagnostikoa. Berria - Gaiak

Molekulen ezagutze-kontu hori, hasiera-hasieran, zerari zegokion soilik: entzimak eta substratuak edo **antigenoak** eta antigorputzak elkarrekin nolabaiteko eragin-trukea izateari. bikoiztez bikoizte eratu dira, besteak beste, hemoglobinen moduko gene-familia asko, hainbat erregulazio-eragile eta immunoglobulinaren familiako geneak, zeinek antzeko eginkizunak baitituzte, hala nola **antigenoak** ezagutzea, zelulak itsastea edo axoiak gidatzea. Juan Garzia

Zilbor-hesteko zelulen kasuan, emailearen eta hartzailearen histokonpatibilitate **antigenoen** (HLA) perfilak ez dute zertan berdinak izan. Berria - Gaiak

2 ***giza antigeno leukozitario*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Gizakien MHC proteinei **giza antigeno leukozitario** deritze (HLA; ingelesetik, human leukocyte antigen), antigorputz espezifikoekin identifika zitezkeen leukozitoen antigeno gisa aurkitu baitziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Giza antigeno leukozitario HLA DR2-n kokaturiko gene batekin duten erlazioa deskribatu dira. Agerraldi akutuak infekzio, HKEE-ek (hanturakontrako ez esteroideo) edota estresak eragin ditzakete. ETC-entziklopedia

---

antigermaniko *izond* germaniarren aurkakoa.

Ez zen **antigermanikoa** ere. Berria - Kultura

---

antigizaki *iz* gizakiaren aurkako izakia.

Distantzia "metafisiko" batetik begiratuta ("Jainkoaren begiarekin"), mundua dena bat ikusten da nonbait finean, kulturen eta herrien (edo sexuen!) diferentzia gabe, "gizakia" besterik ez eta ezgizakia edo **antigizakia** bakarrik haren aurrez aurre. Joxe Azurmendi

---

antiglobalizatzaile *izond* globalizazioaren aurkakoa.

Batetik, ondorioei buruzko ikuspegi baikor zabaldu eta ezaguna, eta, bestetik, gero eta ezagunagoa den ikuspegi ezkorra edo heterodoxoa, **antiglobalizatzaile** etiketa ere jaso duena-, prozesuak sortzen dituen desoreka eta kalteak azpimarratzen dituztenena, hain zuzen ere. Iñaki Heras

---

antiglobalizazio **1** *iz* globalizazioaren aurkako ekintza.

*Disobbedienti*ko taldeko 13 lagun epaitzen hasi dira, G8koen aurkako protestengatik; Casarinik dio **antiglobalizazioaren** aurkako kanpaina dela. Berria - Mundua

2 ***antiglobalizazio mugimendu*** *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Antiglobalizazio mugimendua : globalizazioak sortutako arazoak salatzen ditu. ETC-entziklopedia

Bere doktore tesian, **antiglobalizazio-mugimenduen** XXI. mende handierako goraldia aztertu zuen. ETC-entziklopedia

Aldi berean, ideologia ekologista batekin **antiglobalizazio mugimendu** zabala sortzen da nazioartean nagusitzen ari den eredu neoliberalaren aurka. ETC-entziklopedia

Globalizazioaren aurkako mugimendua, **antiglobalizazio mugimendua** , mugimendu altermundialista edo altermundialismoa neoliberalismoaren eta enpresa kapitalista handiek ezarritako globalizazioaren aurka diharduen gizarte mugimendua da, 1990eko hamarkadaz geroztik mundu osoan sortua. ETC-entziklopedia

Topaketa Internazionalistetan bost gairi buruzko eztabaidak egingo dituzte: Europako eraikuntza eta herriak, **antiglobalizazio mugimenduak** , lege antiterroristak eta gizarte mugimenduak, herri proiektuak eta makro proiektuak, eta Internazionalismoa. ETC-prentsa

Onar dezagun behingoan **antiglobalizazio mugimendua** beste horien denen eskutan dagoela, gu zati txiki ahul bat baino ez garela eta eurengandik ikasi behar dugula. ETC-prentsa

2003an **antiglobalizazio mugimenduak** gailurra jo zuen Irakeko gerraren aurka milioika herritar mobilizatuta. ETC-prentsa

Eta hirugarren leku batean, feminista gazteek emakumeen auzi espezifikoak **antiglobalizazio mugimenduen** baitan txertatzeko zailtasunaz ziharduten. ETC-literatura, saiakera

Batera eta bestera dabil hitzaldiak ematen, eta **antiglobalizazio mugimenduaren** seme kutun bihurtu da, eta tokian-tokiko borrokek hedadura globala nola har dezaketen ikusteko adibide ezinago argia. ETC-literatura, saiakera

Estatuek mundu mailako politika errepresibo antiterrorista bortitzak eratu zituzten, eta 90eko hamarkada erdialdean sustatutako **antiglobalizazio mugimenduak** frenatu zituzten. ETC-literatura, saiakera

---

antigoal *iz* garai zaharra.

Herrialde honek izen ederra zian **antigoalean** , Quitoko Erresuma deitzen zuan. Joseba Sarrionandia

Hildakoei azken agurra ematea, errespetuz begiratzen da edozein kulturatan; **antigoalean** ere, gerran hildako etsaiari ohorea eta haien lagun eta senideen doluari errespetua zioten. Jokin Urain

---

antigoaldu, antigoaldu, antigoaltzen da *ad* antigoalekoa bihurtu.

Mendira atera aurretik bedeinkatu ditu, etxeko beste gela guztietan bezala, eta erabat **antigoaldutako** ohituren azken aztarna moduan, bere oheburu pareko hormatik ere zintzilik dagoen ur bedeinkatuz beteriko ontzi txikian behatzak sartu eta postak ukituz. Pako Aristi

---

antigoalduta *adlag* antigualeko bihurtuta.

Etorkinek etorkizuna gaztelerarentzat irabaziko dute, kultur eta informazio transmisioa egunkari erdaldunetan finkatuz, eta euskara **antigoalduta** geratuko da, ahozko kulturaren ahuldadean zokoratua. Pako Aristi

Mendira atera aurretik bedeinkatu ditu, etxeko beste gela guztietan bezala, eta erabat **antigoaldutako** ohituren azken aztarna moduan, bere oheburu pareko hormatik ere zintzilik dagoen ur bedeinkatuz beteriko ontzi txikian behatzak sartu eta postak ukituz. Pako Aristi

---

antigoaleko *(orobat **antigualeko** g.er.) izlag adkor* garai zaharretakoa.

Gero uharte ikaragarri ederra ikusiko duzue, **antigoaleko** zibilizazioren batek eraiki eta ahaztuta utzitako piramide zuria irudi duela. Joseba Sarrionandia

Mitoak bizi dituen **antigoaleko** gizarte baten esker oneko patxada. Markos Zapiain

Wislawa Szymborska idazle poloniarrak bere herri eta bihotzaren zatiak bildu izan ditu Hitza bilatzen dut zeritzon **antigoaleko** poema hura idatzi zuenetik. Berria - Kultura

Irlandako **antigoaleko** tipografia dakarren liburu batean Connlako Putzua ageri da, bederatzi hurritzez inguratua. Patziku Perurena

Ez zela Berlusconi bezain txarra (è meno peggio di Berlusconi) erantzun zien kazetariei *Caro diario* (Egunkari maitea) film arrakastatsuaren egileak, distantzia markatuz bere klaseko printzipioak mozorrorik gabe ordezkatzen zituen Agnelli bezalako **antigoaleko** kapitalista baten eta eskrupulorik gabeko Berlusconi bezalako iritsi berri baten artean. Anjel Lertxundi

Gandolforen turuta-hotsaren atzetik zihoan oin pauso luzeka, bere burua, **antigoaleko** heroi baten modura, ezagutzen ez zuen gudu bateko soldadu gisa ikusirik. Felipe Juaristi

Alaba bakarra zuten **antigoaleko** guraso haiek, eta Mollyk maiz esaten zuenez, ezin hobea izatea nahi zuten. Mirentxu Larrañaga

Izan ere, **antigoaleko** umeak gara denok, Goio eta Andoni, eta orduko neskatoa neu ere, oraingo jende heldu, sakabanatu, umetasun arrastorik gabea. Joseba Sarrionandia

Arrakasta txiki haiek areago gaiztotu zuten egoera, Fernandok antikuario batek bezala jokatzeko eskatzen baitzidan, hots, liburu haiei **antigoaleko** objektuen gainprezioa eransteko; baina ni ez nintzen horretara ausartzen. Bernardo Atxaga

Kale gezurrezkoa dirudien batera sartzen ari nintzela, nire arreta, hango etxeen itxura bitxi antzinakoari jarria bainuen, aterik atera luzatzen zen **antigoaleko** salgaien denda sail batek eraman zidan bat-batean. Josu Zabaleta

Antigoaleko gauzen denda, lana da, baina ez hainbesterainokoa. Javi Cillero

Urteurrena ospatzeko munduko koparen azken bi garaileek, Brasilek eta Frantziak, partida bat jokatuko dute gaur, eta lehen urte haien omenez **antigoaleko** elastikoak jantziko dituzte lehen zatian. Berria - Kirola

Barrua dena **antigoaleko** altzari eta gortinaz beterik zegoen. Joseba Sarrionandia

Sukalde mehar eta ilun batera pasarazi ninduen berehala, eta gero **antigoaleko** altzariak zituen logela handixeago batera. Joseba Urteaga

Zakurra **antigoaleko** hondar bat da, anakronismo bat. Xabier Olarra

Lorategia, **antigoaleko** horietakoa, arrosaz beterik dago. Antton Olano

-Giltza handi eta **antigoaleko** horietako bat bilatu behar dugu... ziur aski zilarrezkoa, eskulekua bezalakoa. Iñaki Mendiguren

· Horrek ez zien, dena den, lan guztia kendu, Klaustroa aukeratzeko bozketak "lehengo sistema **antigoalekoan** " egin zirelako. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
antigoaleko batean (3); **antigoaleko gauzen** (6); **antigoaleko ipuin** (3)

---

antigoalkeria *iz* antigualeko gauza gaitzesgarria.

Kontsumismoaren aurka hitz egitea gerra galdutzat dauka gaur askok, **antigoalkeriatzat** edo buru-argien zapuzkeriatzat, baina, urteotako gertaera eta esperientzien harira, gero eta garbiago dago gizatasunaren aldeko oihu bilakatu dela, askapen bikoitz bat dakarrelako: munduko txiroak askatuko ditu gosez hiltzetik, eta gu askatuko gaitu hainbeste gauza desiratzetik. Pako Aristi

---

antigoaltasun *iz* antigualekoa denaren nolakotasuna.

Ez dakit Gelatxori bere baserri zaharrera egin dizkiodan bisitek sortutako Stockholmeko sindromea den nire hau, edo bizitzaren muga jakin bat, gaztetasunarena, pasatu

duenaren eutsi ezineko beherakada: izaera eraso berrien aurrean hain ondo babesten duen **antigoaltasunaren** erreibindikazio faltsua. Pako Aristi

---

antigorputz 1 *iz* odoleko linfozitoak sortzen duen gaia, birus edo bakterioek eragindako infekzioari erantzun gisa.

Antigorputzak eta inmunitatea. Irene Aldasoro

Tximuek eppin proteinaren kontrako **antigorputzak** sortu zituzten. Berria - Gaiak

Antigorputzen tasun immunologikoak eta haien egitura. Juan Garzia

Antigorputzen testa eta biopsia egin ostean. Berria - Gaiak

Sendatu diren gaixoen **antigorputzen** bidezko tratamendua aztertzen ari dira. Berria - Gaiak

Oso eritasun bitxia zuela komunikatu zioten medikuek, Churg-Straussen sindromea delakoa, iraganean asma izan duten jende oso gutxirengan agertzen omen dena: sistema immunologikoaren **antigorputzak**, dena delakoagatik, modu izugarri bortitzean hasten dira gorputzaren beraren ehunei eraso egiten eta dena suntsitzen. Iban Zaldua

Batzuetan, nahikoa izaten da "hildako" txerto bat -bakterio edo birus hilak- injektatzea; gorputzaren babesek, arrotzak hautematen, eta, erreakzioz, **antigorputzak** sortzen dituzte; **antigorputzek** urte batzuk irauten dutenez, beste erasoren bat izanez gero, hari ere aurka egingo liokete. Irene Aldasoro

Erasoa amaitu eta gero ere, zirkulatzen jarraitzen dute **antigorputzek**; babes eraginkorra ematen dute. Irene Aldasoro

Gure organismoak lehen bezainbeste **antigorputz**, agian, ekoitziko ez duelako. Edorta Agirre

Nahiz eta mikrobio eta bakterio askok erasotzen gaituzten, **antigorputz** sendoak ditugu. Berria - Euskal Herria

Oraindik ez dugu topatu **antigorputz** eraginkorrak sortzen dituen txertoa, eta ezkutatuko birusa ezin izan dugu eraso Hartan, **antigorputz** bat sintetizatzen zuen linfozito bat halakorik sintetizatzen ez zuen beste batekin bat egiteko asmo lausotan hala genbiltzala, horra berria iritsi César Milstein eta Georges Köhler-ek **antigorputz** monoklonal direlakoak aurkitu zituztela! Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Saizarbitoriaren iritziz, gatazkon aurrean jarrerarik zentzuzkoena nork bere birus nazionalista onartzea da, organismoan bere **antigorputzak** gara ditzan, osotasuna ondorioz osasuntsuagoa -lasaiagoa- bilakatuko baita. Markos Zapiain

3 ***antigorputz monoklonal***

Hartan, antigorputz bat sintetizatzen zuen linfozito bat halakorik sintetizatzen ez zuen beste batekin bat egiteko asmo lausotan hala genbiltzala, horra berria iritsi César Milstein eta Georges Köhler-ek **antigorputz monoklonal** direlakoak aurkitu zituztela! Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antigorputz horiek** (3)
> **antigorputzak erabili** (3); **antigorputzak sortzen** (3)

---

antigual ik **antigoal**.

---

antigualeko ik **antigoaleko**.

---

antiguar *(orobat **antiguatar** eta **antiguotar**) izond/iz* Donostiakoako Antiguako auzokoa.

Presoen senideak biltzen dituen elkarteak zehaztu zuenez infekzioa moztu zitzaion arte preso **antiguarrak** odola isuri zuen txizarekin batera. Berria - Euskal Herria

Arteta zelaian dagoenean, erasoan ahalmen handiagoa dauka Realak, **antiguarra** maisua delako baloia oinetan duela. Berria - Kirola

Hamaikako finko baten aldeko apustua egin nahi duela erantzun zuen Amorrortuk atzo, **antiguarraren** inguruan galdetu ziotenean. Berria - Kirola

Txus Goikoetxea araiztarrak, Zigor Larredonda kataluniarrak eta Sebas Lasa **antiguatarrak** iragan marxoaren 15 etik diraute elikagairik irentsi gabe. Berria - Euskal Herria

Bestalde Sebas Lasaren eta Albaceteko beste presoen egoera salatzeko **Antiguatarrak** elkartea manifestaldi baterako deialdia egin du larunbat honetarako. Berria - Euskal Herria

Gainera, aste osoan argazki erakusketa izan da **Antiguotarrak** elkartean, Iñakiren bizileku zen Donostiako Antigua auzoan. Berria - Euskal Herria

---

antiguatar ik **antiguar**.

---

antiguotar ik **antiguar**.

---

antiherdogailu *iz* herdoila sortzea eragozten duen gaia.

Kontu handiz zainduz gero -olioa aldatu, koipeztatu, piztu, **antiherdoilgailua** eman-, bizitza osoan irauten duteeee! Jon Muñoz

---

antiheroi *iz* heroiari dagozkion kualitateen aurkakoak dituen pertsona.

Antiheroi tragiko erromantikoa zen Jean Gabin. Berria - Kultura

De Niro izendatu dute zinemaren historiako **antiheroi** onena. Berria - Kultura

Generoen nahasketa, **antiheroiaren** papera, umorearen erabilera, asko dira berrikuntza horren aldeko arrazoiak. Berria - Kultura

Easy Rawlins **antiheroiaren** bertuterik handienetako bat, handikeriarik gabe, garai eta komunitate baten errealitatera hurbiltzeko gaitasuna da. Berria - Kultura

Ziragarriak, oso, ekaitzaren sasoian Grimes **antiheroiaren** itzal erraldoia hormaren kontra agertzen denean. Berria - Kultura

MacPhersonen faltsifikazioaz informatua eta, beraz, abisatua egon arren, *Escualdunac* kantazahar faltsua *Deboraren kanta* biblikoaren parekotzat jotzen zuenari Herder-en **antiheroia** jokarazi nahi izatea ez da ulerterrazagoa. Joxe Azurmendi

---

antihidrogeno *iz*

2002: **Antihidrogeno** atomoak sortu zituzten lehen aldiz. Berria - Gaiak

Antihidrogeno multzoak bilduz geroztik, uneon Burbankeko ikerlariak bilakaera sail horren aztertzen ari dira. Itxaro Borda

---

antihigieniko *izond* higienearen aurkakoa.

Posizio **antihigieniko** horretan egon zen hagin-garbitzaileak alde egin zuen arte. Unai Elorriaga

---

antihipokrisia *iz* hipokrisiaren aurkako iharduna.

Lagun horrek lezio handiak eman zizkidan **antihipokrisia** aplikatuari buruz, kontrarioari aurre egitean haren indarraz baliatu beharra dagoela-eta, jiu-jitsuko borrokalariek egiten omen duten bezala. Karlos Zabala

---

antihipotetiko *izond* hipotesien aurkakoa.

Hipotesiak utzirik, **antihipotetikoa** hartu dugu hemen urrunago joateko, gorago igotzeko. Askoren artean

Platonen aburuz, Ideia ez da abstraktua: ikusi dugu Politeian zientzia matematikotik -dianoiatik- egiazko zientziara heltzeko -episteme delakoan sartzeko- jauzi bat egiten dugula, **antihipotetikoa** Izatearen ondo-ondoan jarriz. Askoren artean

---

antihistaminiko *(corpusean ez dago; ETCn **116** agerraldi) izond* histaminaren jarduna oztopatzen duen sendagaia, alergia tratatzeko erabilia.

Antihistaminikoa histaminaren jarduna galarazten duen gaia edo farmakoa da, alergia tratatzeko erabilia. **Antihistaminikoak** diren gaiek logurea eragiten dute eta nerbioak lasaitzen dituzte. ETC-entziklopedia

Azido kromoglizikoa konposatu kimikoa da, medikuntzan **antihistaminiko** gisa erabiltzen dena alergiak tratatzeko. ETC-entziklopedia

Antihistaminikoak eta lozioak pikorrek eragiten duten hazkuraren aurka eman daitezke. ETC-entziklopedia

Bainua hartu eta gero emakumeak lehortzen lagundu zion, eta pomada **antihistaminikoa** eman zion aurpegian. ETC-literatura, saiakera

Aste hartan, gripearen zantzuak sumatzen nituenez, **antihistaminiko** eta gripearen kontrako sendagaien kontsumo masiboa egin nuen, bidaia luze bat autoz egiteko batere egokia ez zena. ETC-literatura, saiakera

Konpresa hotzak, lozio **antihistaminiko** bat eta pilulak agindu zizkien. ETC-literatura, saiakera

Antihistaminikoak egiteko sintetizatu zuten berez, alergien kontrako tratamenduetan erabiltzeko. ETC-prentsa

Askotariko botikak dira erabilgarriak horretarako: depresioaren kontrakoak, lasaigarriak (lo egiten laguntzen dute) eta **antihistaminikoak** (herstura gutxitzeko). ETC-prentsa

Kasu batzuetan, sintomak berez desagertuko dira, edo botikekin (**antihistaminikoak**, kortikoideak), baina hurrengo 4-8 orduetan berriro agertuko dira. ETC-prentsa

Ohiko medikuntzan tratamendua gehienbat sintomatikoa izaten da, eta **antihistaminikoak**, kromonak, antileukotrienoak, bronkodilatadoreak eta, larritasunaren arabera, kortikoideak erabiltzen dira. ETC-prentsa

Intsulinak, esteroideek, depresioaren aurkakoek eta **antihistaminikoek**, besteak beste, jateko gogoa areagotzen dute. ETC-prentsa

Hala, ez dute erantzun bat eragiten, baizik agonista endogenoek (adibidez, naloxonak edo **antihistaminikoek**) eragindako erantzuna blokeatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, gaixotasunak sendatzeko erabiltzen diren farmakoek ere loa nahas dezakete: **antihistaminikoak**, kortikosteroideak, bronkodilatatzaileak eta betablokeatzaileak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antihistaminikoak eta kortikoideak bigarren linearen eta eragin berantaren tratamenduak dira, eta horien bidez erreakzio larria itzultzea gertagaitza da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

antihistoriko *izond* historiaren printzipioen aurkakoa.

---

antihumanismo *iz* humanismoaren aurkako joera.

Tradizioa eta abanguardia, humanismoa eta **antihumanismoa**, iraina eta errealitatea, idatzia eta diskurtsua, gizarte gaiak eta barne hausnarketak, kontzentrazioa eta kasualitatea eskutik emanda doaz. Berria - Kultura

---

antiilustratu *izond* ilustratua denaren aurkakoa.

Ikuspide pluralista da hori, diferentearen eta erlatiboaren maitalea, batasun biziarena ("organikoarena", esaten zuten filosofo "postilustratu" edo, gure artean zenbaitek dioenez, **antiilustraturen** batzuek) batasun matematiko bakunarena barik; ez da mistikoek eta metafisikoek maiteago izaten duten ikuspide monista eta absolutua. Joxe Azurmendi

Hau dena zuzen-zuzen **antiilustratua** da dagoeneko. Joxe Azurmendi

---

antiinflamatorio 1 *izond* inflamazioaren aurka egiten duena.

Medikuntzaren analogia harturik [...] inflamazio bati aurre egiteko **antiinflamatorioak** oso eraginkorrak izaten dira, baina, beste atal batentzat -digestio-aparatuarentzat, kasu-, kaltegarri izan daitezke, ordea. Iñaki Heras

2 *antiinflamatorio ez-esteroideo (corpusean ez dago; ETCn **54** agerraldi)*

Hasierako mailako analgesikoak edo txikiagoak opioaren familiakoak ez direnak ditugu, alde batetik azido azetilsalizilikoa eta **antiinflamatorio ez esteroideoen** (AIEE) multzokoak eta bestetik parazetamol eta metamizol ezagunak. ETC-entziklopedia

Historian lehendabiziko **antiinflamatorio ez esteroideoa** izan zen, eta antzeko beste sendagai batzuek bezala plaketa plaketen funtzionamendu normala hausten du. ETC-entziklopedia

Mina tratatzeko, antiinflamatorioak eta **antiinflamatorio ez esteroideoak**. ETC-entziklopedia

Diklofenakoa bezala, **antiinflamatorio ez-esteroideo** bat da hori. ETC-prentsa

Duela gutxi jakin denez, **antiinflamatorio ez-esteroideo** batzuek (AIEE) -indometazina, fenklofenaka eta diklofenaka, esaterako- ur-disoluzioan eratzen dituzten mizelek beste konposatu batzuk solubiliza ditzakete, barruan hartuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antiinflamatorio ez-esteroideoak, (parazetamola, metamizola, eta dexketoprofenoa), zain barneko bidetik erabiliz, ebakuntza osteko min akutu arina eta moderatuaren tratamendurako oso egokiak dira, beraien ezaugarri antiinflamatorio eta analgesikoak direla eta. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

antiinperialismo *(corpusean **antinperialismo** soilik) iz*

Hiru zatitan eta hiru kontinentetan banatutako foroaren lehen zatian, haatik, hamaika proposamen eta eztabaida egiten ari dira neoliberalismoa, **antinperialismoa** eta globalizazioaren alternatibak ardatz, Beste mundu bat posible da ohiko leloarekin, eta horietatik dagoeneko zenbait erabaki eta iragarpen egin dituzte. Berria - Harian

antiinperialista *(orobat **antinperialista**) izond* inperialismoaren aurkakoa.

Otsailaren 29an izandako 500.000 bolivartarren manifestazioarekin eta Hugo Chavez presidentearen hitzaldi traszendentalarekin Venezuelako Iraultza Bolivartarra fase **antiinperialista** zabalean sartu zen. Berria - Mundua

Otsailaren 29an izandako 500.000 bolivartarren manifestazioarekin eta Hugo Chavez presidentearen hitzaldi traszendentalarekin Venezuelako Iraultza Bolivartarra fase **antiinperialista** zabalean sartu zen. Berria - Mundua

"Borroka antineoliberala eta **antinperialistari** lotu natzaio", adierazi zuen atzo, Caracasera iritsi ahala, Boliviako presidente Evo Moralesek. Berria - Mundua

Espainiaren eta Frantziaren aurkako borrokalari magrebiarrak zoriondu zituen eta, garaian garaikoa, XIX. eta XX. mendeen arteko **antinperialista** izan zela esan daiteke. Askoren artean

Ikuspuntu **antinperialista** eta antiglobalizatzaile batetik. Berria - Mundua

antiintelektualista *izond* intelektualismoaren aurkakoa.

-Harritzen nau zu bezalako **antiintelektualista** batengan horren jarrera intelektuala aurkitzeak -esan zuen Andresek. Josu Zabaleta

antijudaismo *iz* judaismoaren aurkako jarrera.

Literaturan, Pérez Galdós eta J. Valera-ren judeofobiaren erabilera eleberrizkoa, P. Baroja-ren **antijudaismo** kalddarra -dexente areagoa Mirande-rena baino-, edo Mourlane Michelena beste euskotarrarena, etab.; oroz gain "konspirazio judu-masoniko" famatua. Joxe Azurmendi

antijuridiko *izond* arau juridikoen aurkakoa.

Gainera, frogarik ezean, "zantzua gehi zantzua berdin froga" irizpide **"antijuridikoa** " baliatu dutela salatu zuen. Berria - Harian

Emandako iritziengatik gerta daitezkeen desbideratze **antijuridikoak** ezin ditu Ganberatik kanpoko inork zuzendu edo kudeatu; barne araudiko diziplinaren esku egon behar dute, esklusiboki. Berria - Euskal Herria

antikapitalista *izond/iz* kapitalismoaren aurkakoa.

Alemaniako Talde **Antikapitalistak** . Hasier Etxeberria

Batzarretara, beste talde txiki bezain ondo antolatu bat ere agertu ohi zen, lantegietan Biltzar **Antikapitalistak** antolatzen zituen taldea, OIC alderdikoa. Juan Kruz Igerabide

Aita kapitalista zen, eta berak **antikapitalistatzat** zeukan bere burua; aita burgesa zen, eta bera, antiburgesa. Joan Mari Irigoien

Horregatik mutil hura Brigada **Antikapitalistek** bahitu zutela zabaldu zenean, inork gutxik sinetsi zuen albistea. Hasier Etxeberria

Aski izango zen piromano ero bat nintzela aitortzearekin, edo **antikapitalista** sutsu bat. Hasier Etxeberria

antikarlista *izond* karlismoaren aurkakoa.

Gerra Zibilean amaren familia antifrankista, **antikarlista** baitzen. Ana Urkiza

antikastrista *(orobat **anticastrista**) izond/iz* F. Castrok Kuban ezarritako erregimen politikoaren aurkakoa.

AEE Amerikako Estatuen Erakundean iragan asteazkenean Venezuelako ordezkari Jorge Valerok "Miamiko talde **antikastristei** , mertzenarioei eta Venezuelako kolpistei" egotzi zien aste honen hasieran segurtasun indarrek atxilotutako zein ihes egindako paramilitar kolonbiarrak igorri izana. Berria - Mundua

Azken bi hamarkadetan Florida estatua aldatu egin da, eta dagoeneko ez dute eskuineko kubatar **anticastristek** menderatzen. Berria - Mundua

Gobernuak **anticastristak** finantzatzeari utziko dio. Berria - Mundua

antikatalan *izond*

Katalunian bertan aurki genezake kontrako adibidea: zer lortu zuen azken urte hauetan Aznarren gurutzada **antikatalanak** , ERCren aldeko boto independentistak hirukoiztea izan ezik? Joseba Zulaika

antikatalanismo *iz* katalanismoaren aurkako jarrera.

Andaluziako pentsalari batek halaxe esaten zuen: "Espainiako nazionalismoaren masa ideologia **antikatalanismoa** da". Berria - Mundua

antiklerikal *izond/iz* Elizak edo kleroak gizartean esku hartzea gaitzesten duena.

Atlantikoa berrogeitalau aldiz gurutzatu omen zuen tolosar menturazale, pilotazale eta poeta hura, **antiklerikal** samartzat omen zeukaten bere garaikoek. Patziku Perurena

Batean **antiklerikal** sutsuak, bertzean elizaren aldeko jarrera irmoak. Berria - Harian

Parrokiara bidean nindoala absurdoa iruditzen zitzaidan egiten ari nintzena, ni betidanik **antiklerikala** izaki; meza bitartean, berriz, federik ez zitzaidan itzuli baina, halako kontsolamendu-igurtzi moduko bat sentitu nuen, beste jende askok ere sentitzen bide duen antzera, ohituraren indarrez besterik ez bada ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta segida batean konturatu zen lehen ez zela hain **antiklerikala** , errespetuzko zer bat gordetzen ziola elizari, gurasoengandik jasotako ohitura bati zor zitzaion begiramen hotza, eta sinestuntzat zeukala bere burua, sinestun eszeptiko samartzat. Karlos Linazasoro

Navarro Villosladaren hitz destainazkoek idazleak omen zuen ospe gaiztoa ekarri zioten gogora fraideari, gertakizunon garaian idazle nafarra artean liberala baitzen, frantsestu **antiklerikalaren** fama zuena. Anjel Lertxundi

antiklerikalismo *iz* kleroak edo Elizak gizarte zibilean esku hartzea gaitzesten duena.

Robespierrek ateismoa eta **antiklerikalismoa** suntsitu nahi ditu, erlijioa eta kultua indarberritu, zeren eta, haren hitzetan, "ateismoa aristokratikoa da". Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

antiklerikalista *(corpusean **antiklerikalizta** soilik) iz* kleroak edo Elizak gizarte zibilean esku hartzea gaitzesten duen pertsona.

Antiklerikaliztek indar hartu zuten. Xipri Arbelbide

---

antiklerikalizta ik **antiklerikalista**.

---

antiklinal *(corpusean ez dago; ETCn **110** agerraldi) iz* geologian, goranzko tolestura duen estratua.

Antiklinal bat estratuen okerdura zentrutik aldentzen den toles bat da. ETC-entziklopedia

Konkorra goranzkoa edo positiboa baldin bada, **antiklinal** esaten zaio, beheranzkoa edo negatiboa baldin bada, berriz, sinklinal. Jakina, **antiklinaletan**, arroka plutonikoak dira ugarienak, higadura azalera bezala funtzionatzen baitu. ETC-entziklopedia

Nabarniz-Murelaga **antiklinalaren** ipar-ekialdeko aldean daude. ETC-entziklopedia

Mendilerroa, muino txiki batez osatua dago, etzandako **antiklinal** bati dagokiona (IE-ko bergentzia eta IIM-HHE-ko iberiar norabidea). ETC-entziklopedia

Baina liburuaren egileak ez zuen deus ere esaten horrelako kontuez; **antiklinalak**, sinklinalak, faila axialak eta antzekoak besterik ez zuen aipatzen. ETC-literatura, saiakera

Bi **antiklinal** handiren (lurraren tolesturak) artean dago, eta sedimentu ezberdinak ditu. ETC-prentsa

Oiartzungoaz aparte, atzo beste bisita bat izan zen Valderejon, Araban, hango **antiklinalaren** berri emateko. ETC-prentsa

Bertatik, **antiklinala**, borgoniar barra eta Ataungo domoa ikusi ahal izango dituzte, besteak beste. ETC-prentsa

Mendien egitura **antiklinalen** eta sinklinalen segida da, eta higadurarekiko erresistentzia ezberdina duten estratuak txandakatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Protodermoko zelulak, ondoren, **antiklinalki** zatitzen dira (ehun-gainazafarekiko perpendikular sortzen dira pareta zelular berriak), eta, hala, handitu egiten da zelula bakarreko lodiera duen epidermisaren azalera. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

antikoagulante *(ETCn **51** agerraldi; orobat **antikoagulatzaile** ETCn **194** agerraldi) iz* odolaren koagulazioa eragozten duena. ik **antikoagulatzaile**.

Azkaratek egunero behar ditu **antikoagulanteak**, bestela osasun arazo larriak izan ditzakeela jakinarazi zuen bere medikuak. Berria - Euskal Herria

Antikoagulanteak hartu ezean, arazo larriak izan ditzake: tronbosia, flebitisa... Berria - Euskal Herria

---

antikoagulatzaile *(corpusean ez dago; ETCn **194** agerraldi; orobat **antikoagulante** ETCn **51** agerraldi) izond/iz* odolaren koagulazioa eragozten duena. ik **antikoagulante**.

Antikoagulatzailea edo antigatzatzailea odol-gatzatzea, hau da, tronbo edo enboloak sortzea, eragozten duen sendagaia da. **Antikoagulatzaileak** asaldura tronbotikoak dituzten gaixoetan erabil daitezke edo baita odol-transfusio transfusiorako odol poltsa edo dialisirako ekipoetan ere. ETC-entziklopedia

Arazo hau kirurgia eta gero agertu ohi da, eta honi aurre egiteko **antikoagulatzaileak** dituen tratamendu bat gomendatzen da. ETC-entziklopedia

Odol-frotisa egiteko hobe da **antikoagulatzailearekin** kontaktuan egon ez den odola erabiltzea, mota horretako konposatuek emaitzak eraldatu bailitzateke (zenbait **antikoagulatzaileek** odol-zelulak deformatzen dituzte). ETC-entziklopedia

Antikoagulatzaileak dira, odolbilduak izateko arriskua gutxitzen dute. ETC-entziklopedia

Hiperkoagulagarritasuna tronboak sortzeko hainbestekoa denean, heparina ahoko **antikoagulatzaileei** (ACO) lotuta 5 egunez ematen da. ETC-entziklopedia

Tentsiorako, diabeteserako, **antikoagulatzailea**, lo egiteko pilula, eta dagoeneko zertarako balio duten ez dakien beste pilula urdin eta txuri bi. ETC-literatura, saiakera

Antikoagulatzailea denez, hemorragia gertatzeko arriskua hurbiltzen du kirurgia estetikoko ebakuntza egiteko garaian, adibidez. ETC-prentsa

Rocio Cajasek, esaterako, **antikoagulatzaile** bat hartzen du eta botikaren dosiak zehazteko odol analisiak egin behar ditu hiru astetik behin. ETC-prentsa

Pilaketa hori, hala ere, **antikoagulatzaile** bat gehituta saihets daiteke, hala nola potasio oxalatoa, potasio zitratoa edo heparina. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, kumarinak (warfarina edo dikumarola, besteak beste) farmako **antikoagulatzaile** gisa erabiltzen dira, hots, odol-gatzapena ekiditeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

- Pilula koagulatzaileak eta **antikoagulatzaileak** oso antzekoak direla baina kontrako efektua egiten dutela esaten dionekoa. ETC-telebista

GERMAN.- Nituen odolbilduak probokatuak izan ziren. Ze ni **antikoagulatzaileak** hartzen ari nintzen. ETC-telebista

---

antikolonialismo *iz* kolonialismoaren aurkako jarrera.

Baina ez da ahaztu behar ETAren formazio ideologikoan Europako pentsamendu joera berriak nagusitu zirela, ateismotik existentzialismora, marxismotik maoismora, **antikolonialismotik** nihilismora. Joseba Zulaika

Justizia sozialak autodeterminazioa, **antikolonialismoa**, askatasuna... hartzen ditu aintzat. Berria - Gaiak

---

antikolonialista *izond* kolonialismoaren aurkakoa dena.

Palestinarren, nazioarteko mugimenduen eta israeldar **antikolonialisten** arteko elkarlana funtsezkoak dira. Berria - Mundua

Denboraren gurpilak gainditua zuen hurrengo koska, eta zenbait euskaldun, gu baino zaharxeagoak, Che gerrillariaren berri zutenak eta Franz Fanonen edo Leninen teoria **antikolonialistak** ezagutzen zituztenak, gauzak beste era batean ikusten hasita zeuden. Bernardo Atxaga

---

antikomunikatibo *izond* komunikazio jardunaren arukakoa.

Baina ez dut inolako eragozpenik onartzeko nire idazteko tankera, Rubiorena ez bezala, arras **antikomunikatiboa** izan daitekeela, ez behar bezain landua gizarte moderno batek plazaratzen dituen behar berriei zuzen erantzuteko. Pello Salaburu

---

antikomunismo *izond* komunismoaren aurkako jarrera.

Antikomunismoaren marea gora hasia da. Edorta Jimenez

Izan ere, ongizate pribatua-miseria publikoa binomioaren aurka egiten dutenak **antikomunismoaren** jomuga dira. Berria - Mundua

Antzik ikusten al duzu 1989ko **antikomunismoaren** eta egungo "terrorismoaren aurkako borroka" delakoaren artean? Berria - Mundua

Dena dela, **antikomunismo** sutsu hori ez da muntarik gabeko kontua, niri axola gutxi bazidan ere. Xabier Mendiguren Elizegi

---

antikomunista *izond/iz*

Kunderaren fobia **antikomunista** zegoen tartean; eta fobia diot, jarrera politikotik edo ezinikusi hutsetik harago doan gorroto obsesiboa ageri duelako, ezaugarri patologikoak dituena. Hasieran, demokristauen aldeko jarrera hartu zuen, eta "Candido" izeneko astekari batean hasi zen idazten, propaganda demokristaua eta **antikomunista** eginez, Guareschi, berez, eskuindarra, erregezale eta **antikomunista** izan zen, **antikomunista** amorratua gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

FBIko SIS-basque adarrean lan egiten dutenetako batzuk, **antikomunista** porrokatuak, marea gorarekin poz-aparretan dira. Edorta Jimenez

Agirre lehendakariak askatasunaren bermetzat jo izaten zituen aliatuek espainiar **antikomunista** -eta faxistak- hobetsi zituzten euskotar demokraten -eta **antikomunisten** - aldean. Edorta Jimenez

---

antikonbultsibo *iz* konbultsioen aurkako sendagaia.

1988an atake bat izan zuen; lehenbizikoa zen (**antikonbultsiboak** hartzen aritua zen, zuhurtziaz, operazioa egin ziotenetik), eta, atake hartan, hanka bat hautsi zuen. Xabier Olarra

---

antikonformista *izond* konformismoaren aurkakoa.

Deusik ez dute erakustera eman nahi izan, angeluarrek ez dute solas **antikonformistarik** atera eta erabaki guziak aho batez hartuak izan dira. Herria

---

antikonstituzional *izond* konstituzioak dioenaren aurkakoa dena.

"Gure alderdiak Ibarretxeren Planaren testua erabat **antikonstituzionala** dela uste du", esan zuen PSE-EEko presidente Jesus Egigurenek. Berria - Euskal Herria

---

antikontsumista *izond/iz* kontsumismoaren aurkakoa.

Cristina Garaizabalek dioenez, transexualen itxura zaintzeko asko kontsumitzen dutela salatzen dute **antikontsumistek**, eta feminista batzuk, berriz, estereotipoak nabarmentzen dituztela. Berria - Euskal Herria

---

antikontzeptibo 1 *izond/iz* haurdunaldia eragozten duena.

Pilula **antikontzeptiboa** hartuz gero, hilekoak gutxiago irauten du. Luis Elberdin

Garrantzitsua da jakitea estreina noiz izan zenuen hilekoa, normalean nolakoa izaten duzun, aurreratu edo atzeratzen zaizun, zure garaiera eta pisua, gaitzik baduzun, botikarik hartzen duzun, alergiarik baduzun, haurrik baduzun, arazorik izan zenuen erditzerakoan, aborturik izan duzun, zer metodo **antikontzeptibo** erabiltzen duzun, arazorik izan duzun metodo horrekin. Luis Elberdin

Metodo **antikontzeptiboen** artean aukeratzeko orduan, kontuan hartu beharko ditugu hainbat gauza: [...]. Luis Elberdin

Badira zenbait botika ezereztu edo gutxitu dezaketenak pilularen eragin **antikontzeptiboa**, batez ere antibiotikoek eta anti-inflamatorioek. Luis Elberdin

Kartzela-zigorra eta isuna ezarriko zaie 1) edozein abortu-praktikaren egileari; [...] 4) norbait abortatzera bultzatu duenari edo propaganda **antikontzeptiboa** egin duenari. Joseba Urteaga

Dosi txikiko ahozko **antikontzeptibo** konbinatuak (AOC) oso egokiak dira harreman sexual iraunkorrak dituzten nerabe eta gazteentzat. Luis Elberdin

Ginekologoarengana **antikontzeptiboren** bat erabiltzen duzulako, edo hilekoarekin gorabeherak dituzulako edo azkura duzulako joateaz gain, aldian behin ere joan behar da azterketa egitera. Luis Elberdin

2 ***diafragma antikontzeptibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Diafragma antikontzeptiboa kontrazepzioko metodo mekanikoa da, baginan barrera edo hesi bat ezartzen datzana. ETC-entziklopedia

3 ***metodo antikontzeptibo***

Metodo antikontzeptiboen artean aukeratzeko orduan, kontuan hartu beharko ditugu hainbat gauza: nahi gabeko ondoriorik eta osasunarentzat kaltegarriak ez izatea, erabiltzen errazak eta erosoak izatea, jolas sexualaren bat-batekotasuna ez haustea... Luis Elberdin

4 ***pilula antikontzeptibo***

Datu horiekin guztiekin, ginekologoak **pilula antikontzeptibo** klase zehatz bat aginduko dizu, zuretzat egokiena. Luis Elberdin

---

antikontzepzio *iz* haurdunaldia eragozteko metodoen multzoa.

Nabarmentzekoa da Sadek duela bi mende plazeraz, **antikontzepzioaz** edo abortuaz planteatzen zuena dela gaur egun irizpide sexualen barrutian abangoardian dagoena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sadek bezala, Reichek ere sexu-anatomia, **antikontzepzioa**, abortua, kitzikapena edo orgasmoa ditu hizpide. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

antikrepuskular *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi; soilik **izpi antikrepuskular** hitz elkarketan erabiltzen da)*.

1 ***izpi antikrepuskular***

Izpi antikrepuskularrak izpi krepuskularren antzeko fenomeno optiko atmosferiko bat dira, baina eguzkiaren aurkako aldean agertzen dira zeruan. Izpi krepuskularrek zerua zeharkatu eta eguzkiaren aurkako aldeko puntu batean itxuraz bat egitean sortzen dira. ETC-entziklopedia

---

antikristau *izond* kristauen eta kristautasunaren aurkakoa.

Arkaismo politikoaren jarreran erori zen zuhurtzigabe, feudalismoa, monarkia, aristokrazia, "kapitalismoa" eta, oro har, ancien régime-ren alde eginez, eta ohiko arerio "iraultzailea" bezain **antikristau** ziren erreakzionario politikoen aliatu eta sarritan tresna bilakatu zen. Iñaki Mendiguren

Ez dago sinetsi beharrik idazle protestante eta **antikristauen** alegazio guztiak. Iñaki Mendiguren

Antikristo izan nahi zuen aleman filologo harentzat, filologia sineskortasunaren etsaia da; ez dago filologo izaterik **"antikristau"** izan gabe. Iñaki Segurola

- **Antikristauak** deitzen gaituzte! Elena Touyarou

---

antikristo *(orobat **Antikristo**) iz* San Joanek dioenez, Kristoren bigarren etorreran kristauak bere fedetik urruntzeko agertuko den izaki gaiztoa.

Iragarri zuen Napoleon **antikristoa** zela eta harrizko katez loturik zeukatela sei estepa eta zazpi itsaso harantzago, baina egunen batean kateak etengo zituela eta mundu osoa menderatuko zuela. Jose Morales

Seme-alabok, azken ordua da. Entzuna duzue **antikristoak** etorri behar duela. Elizen arteko biblia

Hara bada, **antikristo** asko agertu da dagoeneko, eta hori da azken orduaren seinalea. Elizen arteko biblia

Horixe da **antikristoa**, Aita eta Semea ukatzen dituena. Elizen arteko biblia

Damutzen ziren eta bekatu egiten zuten berriro, eta, **antikristoa** atzitzeko aitzakian, **antikristoa** ez ziren asko hil zituzten. Jose Morales

Antikristo izan nahi zuen aleman filologo harentzat, filologia sineskortasunaren etsaia da; ez dago filologo izaterik "antikristau" izan gabe. Iñaki Segurola

Horrela, **antikristoaren** garai arriskutsuen aurrean atleta berriak prestatu ditu eta Eliza aurretiaz babestu eta indartu du. Askoren artean

Profetizatzen zuen Federiko Bizargorri enperadorearen itxurapean etorria zela **Antikristoa**, haren hondamendia burutua zela, eta aurki altxatuko zirela Zazpi Ordenak haren ondotik, Eskrituraren interpretazioaren arabera. arima horiek hain gose ziren gizakiak bizi izateko behar-beharrezkoa duen ogiaz, ezen komunismoak eman zien hitza irentsi egin baitzuten, hura Jainkoaren ala **Antikristoaren** hitza ote zen galdetzeko pausarik gabe. Juan Garzia

Hauek dira -hala uste dugu guk- azken garai hauetan **antikristoaren**, hondamen-semearen, eta honen jarraitzaileen aurka Jainkoak sortu dituenak. Askoren artean

Arras polit eta hunkigarria dena, xehetasun batengatik izan ez balitz: horietariko bat baino gehiago Henrike Borboikoari "Kuku **antikristoa**! Aingeru Epaltza

---

antikuario *iz* zaharkinen saleroslea.

Pareta guztiak liburuz beteak, eta, idazmahaia buztinki etiketatuz josia ikusi arren, ez zitzaidan iruditu, lehen begiratuan behintzat, **antikuario** baten etxea izan zitekeenik hura, aitzitik: altzariak erabat modernoak baitziren. Joxe Austin Arrieta

Londresen, 1929ko ekainaren hasiera aldera, Joseph Cartaphilus **antikuarioak**, Esmirnakoa bera, Pope-ren Iliadaren sei liburukiak, laurden txiki moldean argitaraturikoak (1715-1720), eskaini zizkion Lucinge-ko printzesari. Juan Garzia

Krausek -New Yorkeko **antikuario** eta liburu zaharren biltzaile batek- Voynich eskuizkribua erosi zuen 1961. urtean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Paradoxaz, arrakasta txiki haiek areago gaiztotu zuten egoera, Fernandok **antikuario** batek bezala jokatzeko eskatzen baitzidan, hots, liburu haiei antigoaleko objektuen gainprezioa eransteko; baina ni ez nintzen horretara ausartzen. Bernardo Atxaga

Ala baita gogaikarria **antikuario** bikain horren estiloa ez iristea beraren burubidearen parera! Juan Garzia

---

antikultural *izond* kulturaren aurkakoa.

Esan bezala, gutako bakoitzak dauzka barruan egundoko joera suntsitzaile **antikulturalak**, jasangaitzak baitzaizkigu gizarteak gure gurariei ezartzen dizkien sakrifizioak. Markos Zapiain

---

antiliberal *izond* liberalismoaren aurkakoa.

Eta, karlistak ala bizkaitarrak izan, apezak **antiliberalak** baldin baziren, halaxe ziren orobat 1887ko Unamuno bera "Espíritu de la raza vasca"n eta 1897ko Pachico Unamuno Paz en la guerra-n Joxe Azurmendi

---

antilibertario *izond* anarkismoaren aurkakoa.

Balantza kulunkarian, non askatasun pertsonala eta gizarte-zuzentasuna ari baitziren pisatzen elkarren kontra, teknologiaren giltza ingelesa plater **antilibertarioan** zegoen jarrita. Iñaki Mendiguren

---

antiliterario *izond* literaturaren aurkakoa.

Anaiarik gabeko haurtzaro zoriontsua gurasoekin; non, eta berez munduko hiririk **antiliterarioenetakoa** den Gasteiz honetan. Iban Zaldua

---

antilogaritmo *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* logaritmoa zenbaki jakin bat duen zenbakia.

Neskak badaki hitz horrek zer esan nahi duen, jakin dakien moduan zer diren sinesgaiztasuna etetea, biogenesia, **antilogaritmoak** ... ETC-literatura, saiakera

Hasiera batean, Napierrek "zenbaki artifizialak" bezala izendatu zituen logaritmoak eta, aldiz, "zenbaki naturalak" bezala **antilogaritmoak**. ETC-entziklopedia

Ondoren, V4 elkargunearen **antilogaritmoa** zehazten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

antilogia *iz*

Aldagaien egia-esleipen guztientzat formula faltsua denean **antilogia** bat izango dugu. Askoren artean

Tautologia eta **antilogia** ez den formula bati neutro esaten zaio. Askoren artean

---

antilope 1 *iz* behiaren familiako ugaztun gorputz-liraina, adarrak gorantz eta atzerantz zuzenduak dituena(antilope).

Ez nintzen sentitzen Altamirako aspaldiko ehiztari urrunetik oso bestelako, harrizko hormetan **antilopea** margotzen baitzuen, zoria lagun izateko biharamuneko ehizan. Juan Garzia

Elefanteak eta **antilopeak** ehizatzen dituzte. Joxean Agirre

Hor daude zure seme-alabak, kaleburu guztietan etzanik, ezinaren ezinez, sarean harrapaturiko **antilopeak** bailiran, Jaunaren suminak, zure Jainkoaren zigorrak jota. Elizen arteko biblia

Erran dizuedan bezala, bada, tigre honek **antilopeak** eta ostrukak zituen ehizagai Afrikako ordokietan. Joan Mari Irigoien

Berak atzerrian ikusitakoen antzeko mendi zoragarria zela, ibarrak eta loreak eta ezkilotsa eta txoriak kantari eta antxume eta **antilopeak**. Anton Garikano

Altzairuzko xaflaz, oholez eta pneumatiko zaharrez hesitutako eremu bat, non oiloak dabiltzan aztarrika eta **antilope** txiki baten itxura bitxia duen animalia bat lo datzan bazter batean. Oskar Arana

Zaldiak eta asto basatiak eta tarteka **antilope** pinttoren bat han-hemen, oraindik ere ibiltzen dira ordeka haietan alderrai. Xabier Olarra

XIX. mendean Afrikako lurraldeak zeharkatzen zituzten bidaiariek idatzita utzi zituzten deskribaketak, kasu, haien begien aurrean ilara estuetan pasatzen ziren **antilope** saldoek ez ordu bat eta bi, egunak baizik ematen zituztela. Pako Aristi

Mozambikeko zein Angolako, berdin dio, dena da halako anabasa bat kolonoaren **antilope** larruzko maletan. Iñigo Aranbarri

· Honez gain, mintzagai izango dira ere, Errusia eta Mongoliako estepetako saiga **antilopea** (Saiga tatarica) eta irrawaddy izurdea (Orcaella brevirostris) eta pertsianak egiteko erabiltzen den ramin zuhaitzaren egurra. Berria - Gaiak

2 ***sable antilope*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Sable antilopea ("Hippotragus niger") "Hippotragus" generoko animalia da. Artiodaktiloen barruko Hippotraginae azpifamilia eta Bovidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
antilope txikiak (3)

---

antimarxista *izond* marxismoaren aurkakoa.

Hark kontatzen zizkigunak berriro hausnartuz konturatu naiz Bultzagilleen teoriak zirela irakatsi nahi zizkigunak; dena dela, ez da hau talde **antimarxista** haren perlak aletzeko plazarik egokiena. Xabier Mendiguren Elizegi

---

antimateria *iz* antipartikulek osaturiko materia.

Egun unibertsoaren sorrerako materia eta **antimateriaren** misterioa argitzeko lanean ari da CERN. Berria - Gaiak

Antimateriarekiko soberakintxo horrek iraun du, hain zuzen -hamar mila milioiren baten gorabehera hortxe-, eta, handik hiru minutura, atomo-gune arinak eratu; gero, milioi bat urteren buruan, atomoak; askoz ere geroago, izarretako elementu astunak. Juan Garzia

---

antimetafisiko *izond* metafisikaren aurkakoa.

Manipulazio txiki bat nahikoa da, arrazoirik **antimetafisikoena** tesi metafisiko bat bihurtzeko. Joxe Azurmendi

---

antimikrobiar *(corpusean ez dago; ETCn **109** agerraldi; orobat **antimikrobiano** ETCn **34** agerraldi) izond* mikrobioen kontrakoa.

Hidrogel **antimikrobiarren** alternatiba aurkeztuko du Haritz Sardon kimikariak, Materialen Zientzia eta Teknologia kongresuan. ETC-prentsa

Hori dela eta, kontserbatzaile **antimikrobiar** hidrosolubleak dira eraginkorrenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Non eta ikurrak agente **antimikrobiarraren** bi kontzentrazio baitira, eta t1 eta t2 ikurrak, berriz, bideragarrien kontaketan murrizte-maila bera lortzeko hurrenez hurren igaro diren denborak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Metodo horretan maiz oinarritzen diren farmakoak antibiotiko bakteriostatikoak eta nahiko indize terapeutiko handia duten beste eragile **antimikrobiarrak** (sulfonamidak) dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

1 Zauritutako landare-zelulek agente **antimikrobiar** orokorrak jariatzen dituzte; adibidez, azetosiringonafenolikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aipatu ditugun eragile fisiko eta kimiko horiek guztiek, antibiotiko eta botika **antimikrobiarrekin** batera, mikrobio kaltegarrien hazkuntza kontrolatzeko era ematen digute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Espezia jakin batzuen propietate **antimikrobiarrak** antzinetik deskribatu dira ere. ETC-entziklopedia

Bestalde, biogeruzak mikrobioak babesten ditu, egitura horretan zailagoa baita eragile **antimikrobiarrak** (bakterio-kontrako antibiotikoak, desinfektagarriak...) mikrobio guztietara iristea. ETC-entziklopedia

Eragile **antimikrobiarrak** izanik, bakterio-kontrako antibiotiko moduan erabiltzen dira hainbat gaitz infekziosoen aurka, medikuntzan eta albaitaritzan. ETC-entziklopedia

---

antimilitar *izond* militarren aurkakoa.

Harrigarriagoa da ikustea armadaren estalkia eliza baten gainera etortzen, eta are gehiago inspirazio horren hartzailea tradizio **antimilitarra** duen eliza bat bada. Iñaki Mendiguren

---

antimilitarismo *iz* militarismoaren aurkako doktrina, jarrera edo joera.

Vigon atzo eztabaida eguna izan zen, eta gai ugari jorratu ziren foro eta lantegietan, besteak beste, honako hauek: garapen iraunkorra, espiritualismoa, **antimilitarismoa**, hezkuntza, osasuna, immigrazioa, emakumeen kontrako indarkeria, pobrezia, askatasun sexuala, Europako Konstituzioa eta ekologia. Berria - Euskal Herria

Aldi berean, tolerantzia hau, **antimilitarismoaren** forman, abantailatsua gertatuko da kanpotar erasokorrentzat: barbaro edo auzoko zibilizazioentzat. Iñaki Mendiguren

Ber momentoan, ezker abertzaleko bertze bi erakunde: Patxa (**antimilitarismoren** kontra arizan dena) eta Oldartzen taldeak prozesu bat hasten dute elgarrekin egitura berri baten muntatzeko. Herria

Gaztetatik sartuta nengoen ingurumen eta **antimilitarismo** gaietan. Berria - Euskal Herria

Desafio horien artean ekologismoa, feminismoa eta **antimilitarismoa** indartu, eta gizarte politika eraginkorra bultzatzea aipatu zituen. Berria - Euskal Herria

Gaztetatik sartuta nengoen ingurumen eta **antimilitarismo** gaietan. Berria - Euskal Herria

---

antimilitarista *izond/iz* antimilitarismoaren aldekoa.

Aitaren batean bertaratu ziren poliziak ekintzaile **antimilitaristak** atxilotzeko asmoz. Txema Ramirez de la Piscina

Pintaketa **antimilitarista** egiten ari ziren, hedabideetako kamera eta mikrofonoak lagun zituztelarik, non eta Gobernu militarraren murruetan. Txema Ramirez de la Piscina

Badago zer ospatu, esaten ziguten gonbidapen-eskutitzean: azken finean, soldadutzak desagertu behar badu, talde **antimilitariston** lanarengatik izan dela, hein handi batean behintzat. Iban Zaldua

Hatsa gazte mugimenduak antolatzen du lehen gaztegun **antimilitarista**, abendoaren 23 an, Donibane Lohizunen. Herria

Azken urteotan bortxakeriarik eza aktiboaren bidetik ekimen interesgarri franko garatu dira (Demoak, Itoizko solidarioak, Zuzen Taldea, mugimendu **antimilitarista** ...). Txema Ramirez de la Piscina

Alderdi bakezale eta **antimilitarista** gisa ere EA indar erakusketa bidez eginiko ospakizuna egitearekin ez datorrela bat erantsi zuen Lasak. Berria - Euskal Herria

Borroka ekologista, baina, bestelako errebindikazioei lotuta joan da leku eta urte askoan; borroka **antimilitaristari** lotuta, esaterako. Berria - Gaiak

Herrien burujabetasunari eta bakearen inguruko alternatiba **antimilitaristari** dagokienez, EBk ez du proposamenik egiten. Berria - Euskal Herria

F. W. Foerster, Municheko Unibertsitatean pedagogiako irakaslea 1914tik 1920ra, **antimilitarista**, politikaren teoriko guztiz kritikoa, pazifista erradikala izan da. Joxe Azurmendi

Ni **antimilitarista** naiz, inongo salbuespenik gabea gainera, erabateko mesfidantza daukat militarrenganako, haientzat ideologiaren gainetik disziplina dagoelako. Pako Aristi

Herenegun, militarrak ailegatu aurretik, **antimilitaristek** hartu zuten Arrazolako ingurua kanpaldia egiteko. Berria - Euskal Herria

Buechelgo basean hamaika bonba atomiko biltzen direla salatu dute **antimilitaristek**. Berria - Mundua

Antimilitaristok oso argi eduki behar dugu botereak esparru nuklearra gogotik baliatzen duela militarizazio prozesua kudeatzerakoan. Berria - Euskal Herria

Bortxatzaileak, tiranoak, parrizidak, pedofiloak, pederastak, genozidak, marikoiak, ateoak, **antimilitaristak**, nazionalistak inkluso, zer dira? Karlos Linazasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antimito *iz* mitoaren aurkako jarduna.

Bertsolaritzaren antzinatasunaz mito errazegi bat egin da, euskal bertsolaritza betikoa edo dela; eta mito guzien kontra doan gure aldi azkar honetan erraz sortu da **antimito** haserretua ere: bertsolaritza fenomeno aski modernoa dela Euskal Herrian, XIX. mendekoa edo. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

antimodelo *iz* modeloaren aurkakoa.

Ramadanek esan zuenez, zenbait islamisten ikuspuntuari jarraiki, Mendebaldea **"antimodeloa** da". Berria - Mundua

antimoderno *izond* modernoa denaren aurkakoa.

Pentsalari konbertitu **antimodernoaren** Estatu irmo eta modernozale izate hau ez da Salamancako errektore beti paradoxal kontsideratuaren paradoxa bat gehiago, eta bai kopia bat edo jarraipena soil, tenore horretantxe, XIX. mendearen hondarrean, karakteristika berberekin Frantzian agitzen ari den lerrakuntzarena eskuin patriotarantz. Joxe Azurmendi

Karlistak, foruzaleak, funtsean Foruak berak, **antimodernoak** ziren eta kito, ezabatu egin behar ziren. Joxe Azurmendi

antimonarkiko *izond* monarkiaren aurkakoa dena.

Zergatik onartzen du Gipuzkoa **antimonarkiko** eta abertzaleak Real hori? Iñigo Aranbarri

antimonio *iz* metal gogorra eta hauskorra, kolore zuri urdinkara eta distiratsukoa, aleazioetan eta inprenta tipoak egiteko erabiltzen dena.

Berunezkoak baino, berun- **antimoniozkoak** direla esan behar nikek. Txillardegi

antimuseo *iz*

Esku-hartze sinplea, zuzena eta aurrekontu gutxi behar dituzten horiei **antimuseo** deitzen zaie, eta sarritan emaitza oso egokia izan da. Berria - Kultura

antimusulman *izond* musulmanen aurkakoa.

Bestalde, erretorika **antimusulmanari** [...] ere aurre egin behar zaio. Berria - Mundua

antinatural *izond* naturala denaren edo naturaltzat hartzen denaren aurkakoa.

Esklaboaren moralak nagusiaren morala ordezkatu du, eta aldaketa hori hain indartsua izan da, nagusiak berak balio-sistema **antinatural** hori beretu egin baitu. Askoren artean

Antinatural litezkeenak berez Pirinio Atlantikoetako Departamendua, transgenikoak edo beste hain naturalak bilakatuak direla, eta gaurko jendartean, oro har, kritika zehatz eta zuzenak botatzen ditu Mattin Irigoien antzerkiaren idazleak. Berria - Kultura

Uste dut, baina, txarto jantzi ditudala (hanka biak zulo beretik-edo), hankartean presio **antinaturala** sentitzen dudalako. zentzugabea da guk haien ohorea eta haien bertutea tentazioei aurre egiteko jartzen duten indar **antinaturalaren** arabera juzgatzea, joera horiek guk baino askoz ere oparoago jaso dituztenean naturatik. Unai Elorriaga

Hainbat eta hainbat kastuk adierazi izan du sabelpeko gozamenari uko egite **antinaturalak** bihotzeko eta adimeneko pozaldi delikatuagoak dakartzala ondorioz. Markos Zapiain

Konstituzio iraultzaileak arras **"antinaturalak"** sumatzen direlako (Gobineau, De Maistre, etab.). Joxe Azurmendi

antinaturalismo *iz* naturalismoaren aurkako joera.

Filosofo moralak maiz tarteko argudiorik gabe "da" eta "ez da" baieztatzetik eginbeharrak eta debekuak ezartzera pasatzen direla salatu zuen Humek ("no ought from is" **antinaturalismoaren** lelo bihurtu zuen). Askoren artean

antinaturalista *iz* naturalismoaren aurkakoa.

Semantizista gehienena bezala, van Fraassenen zientziaren irudia antifundazionalista da (vs ikusmolde estandarra), **antinaturalista** (vs enpirismo quinear eta kognitiboa, bai eta vs naturalismo sozio-historikoak) eta konstruktibista (ereduen eraikuntza azpimarratuz eta ez errealista zientifikoak egiten duen moduan fenomeno behagarrien arteko erregulartasuna). Askoren artean

antinaturaltasun *iz* naturaltasunaren aurkako joera.

Antinaturaltasuna nork idurika lezake, ez bada hortzekilako oilo batek... Berria - Kultura

antinazionalista *izond* nazionalismoaren aurkako jarrera edo joera.

Ni **antinazionalista** naiz, esan zigun, telebistarako elkarrizketa bateko argiak eta kamerak itzali bezain pronto. Hasier Etxeberria

ETA barruan beren bizitzak arriskuan jarri eta gero, anti-ETA eta **antinazionalista** bihurturik, beren bizitzak atzera berriz arriskuan jartzea erabaki duten kasu nabarmen horiek enigmaz beteak dirudite. Joseba Zulaika

Antinazionalista zela esan zigun eta hori arras ezberdina da zinez, gainerako nazionalisten aurkakoa dela erran nahi baitzuen, Patri. Hasier Etxeberria

antineoliberal *izond* neoliberalen aurkakoa.

Atenasen hilaren 4tik bildutako talde **antineoliberal**, sindikalista eta ekologisten erabakietako bat heldu den irailean, Europan barrena, gerraren kontrako manifestazio eta

ekintzak egitea izan da. Berria - Mundua

Habanaren eta Caracasen borroka **antineoliberalari** lotu zaio Morales. Berria - Mundua

"Borroka **antineoliberala** eta antinperialistari lotu natzaio", adierazi zuen atzo, Caracasera iritsi ahala, Boliviako presidente Evo Moralesek. Berria - Mundua

---

antinomia *iz* bi lege, printzipio, ideia edo kideen arteko aurkakotsuna edo kontraesana.

Inferentzia dialektiko hauetan arrazoimenak jasaten duen egoerari arrazoimen hutsaren **antinomia** deituko diot. Ibon Uribarri

Baina, alderantziz, **antinomia** honetatik egiazko erabilera lor daiteke, ez dogmatikoa, kritikoa eta doktrinala baizik. Ibon Uribarri

Antitetika transzendentala arrazoimen hutsaren **antinomiaren** azterketa da, bere kausena eta bere emaitzarena. Ibon Uribarri

Hau gertatzen da mundu-adigai guztiekin, eta honegatik hauek arrazoimena nahitaezko **antinomian** nahasten dute, haiei atxikitzen zaien heinean. Ibon Uribarri

Ideia kosmologiko guztien artean laugarren **antinomia** sortu zuenak bultzatzen gaitu urrats hau egiten ausartzera. Ibon Uribarri

Arrazoimen hutsaren **antinomia** osoa argumentu dialektiko honetan funtsatzen da: [...]. Ibon Uribarri

Arrazoimena espekulazioetan hegaldatzen da Jainkoaz, arimaz, munduaz (den guztiaren orotasunaz bezala), beraien esperientziarik ezin eduki den azken printzipio metafisikoez, eta **antinomia** konponezinetan korapilaturik amaitzen du. Askoren artean

Antinomia dinamikoan arrazoimenaren asmoarekin batera daitekeen halako aurresuposizioa gertatzen denez gero, bi aldeen arteko adostasuna lor daiteke ikuspegi honetatik. Ibon Uribarri

Aurkakotasun hauek ez dira harrigarrienak, ezta sakonenak ere: gertaera ebolutiboaren eta gertaera estatikoaren arteko erabateko **antinomiaren** ondorioz, bi gertaera horiei buruzko nozioak ezin dira elkarrekin antolatu, gertaerak berak ere elkarrekin ezin antolatu diren era berean. Isabel Arrigain

Legeen aplikazioan nabarmentzen den **antinomia** nomotetikaren etsamina-saialdi onena. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrazoimen hutsaren antinomia** (8)
> **arrazoimen hutsaren antinomiaren** (10)

---

antinomiko *izond* antinomiaz baliatzen dena; ondorioz antinomia dakarrena.

Hori ez da, dena den, oztopoa fenomeno orokorrean lotura bat izateko bi faktore **antinomiko** hauen artean: egiune arbitrarioa, zeinak ahalbidetzen baitu hautu librea, eta denbora, zeinari eskerrak hautua finkatua aurkitzen baita. Isabel Arrigain

Bazinen eta Goodmanen ikuspegiak, diren bezain elkarren **antinomikoak** izanik, ia-ia ezin sintetizatuzkoak dira. Josu Zabaleta

Ezin dugu aipatu gabe utzi bigarren aldiz pasarte bat, bere fintasunagatik eta oso liburu distiratsu baten hitzaurrea izanik, fedegabezia **antinomikoaren** aitorpen klasiko bilakatu dena. Iñaki Mendiguren

Unibertsoko eremu bat [...] aginte nagusi izengaberen batek kaosarentzako santuario gisa gorde zuela aldarrikatzea asegarria izan zitekeen historialari **antinomikoentzat**, baina blasfemiatzat hartuko zuketen zientziaren jarraitzaile zintzo guztiek. Iñaki Mendiguren

Egia esateko, Mendebalde modernoko historialariak ez ziren uste zen bezain **antinomikoak** izaten. Iñaki Mendiguren

---

antinperialismo ik **antiinperialismo**.

---

antinperialista ik **antiinperialista**.

---

antinuklear **1** *izond/izlag/iz* energia edo arma nuklearren erabileraren aurkakoa.

Erradikalismotik humanismora eta atzera buelta (ahaztu gabe, besteak beste, hiri-gerrillako komandoak, Marx-en Kapitala-ren irakurketarako langile-taldeen gidaritza, mota askotako talde ekologista, **antinuklear** eta antimilitaristak, eta materialismo historikoari buruzko mintegi fantasma hura). Iban Zaldua

Espainiako Gobernuak Burgosen duen ordezkariarekin bilduko dira **antinuklearrak**, itxialdia eskatzeko asmoz. Berria - Euskal Herria

Gobernuan sozialdemokratekin koalizioan diren Berdeen eta haien sorburua izan zen mugimendu **antinuklearraren** arteko ika-mikaren beste atal bat sortu da Siemens konpainiaren lantegi atomiko baten harira. Berria - Mundua

Ala Frantziak, ala Amerikar Estadu Batuek armamendu politika hori segitzen dute, Greenpeace **antinuklear** erakundearen buruak garbiki dionaz. Herria

Zentrala itxiko zela urteetan emandako hitza betetzeko ordua dela gogorarazi diote PSOEri **antinuklearrek**; asko jota, bi urteko epean egin beharko lukeela diote batzuek, eta besteek muga legealdia dela. Berria - Euskal Herria

2 *eguzki antinuklear* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Ordurako euskal herrietako kaleak **eguzki antinuklear** hori-gorriaren irudiz josita zeuden. ETC-prentsa

Lemoiz baino eraiki ez bazen ere, izen zerrenda bihurtu zen laukotea, eta **eguzki antinuklearrez** bete zitzaizkigun bazterrak. ETC-prentsa

Atotxako dorreko bere gelako leihoan **eguzki antinuklear** handi bat jarri zuen, Atotxako futbol-zelai zaharretik eta Donostiako hainbat tokitatik ikusten zen. ETC-entziklopedia

3 *mugimendu antinuklear*

Manifestariek pegatinetan agertu zuten garai batean mundu osoko **mugimendu antinuklearrak** izandako sinbolo ezaguna. Berria - Euskal Herria

Gobernuan sozialdemokratekin koalizioan diren Berdeen eta haien sorburua izan zen **mugimendu antinuklearraren** arteko ika-mikaren beste atal bat sortu da Siemens konpainiaren lantegi atomiko baten harira. Berria - Mundua

---

antioin *iz irud pl* antipodak.

Eta behin honaino ezkero, mundu gertatuko zoriontasunaren **antioinetan**, ohartzen naiz hemen ere ez dela gauzarik gertatzen, eta eguzkia eta ilargia bera ere odoletan etzan direla alfergurak menderaturik. Iñaki Segurola

---

antiojo *(orobat **antioju** g.er. eta **antiaju** g.er.)* **1** *iz* betaurrekoa.

Lente koxkor eta biribiletako **antiojoak** zeramatzan gizon bat zegoen idazmahaiaren atzean, ile dirdaitsua atzerantz tinkatua zeukana Gabardina, **antiojoak**, kapelua kendu zituen. Josu Landa

Aita, kopeta zimurtu, **antiojoak** ondo bermatu eta poliki abiatu zen hala ere. Berria - Kultura

Kontu zailen bat buruan zebilkion orotan ohi zuen moduan, eskua kopetatik pasatu eta begiak xukatu lehenik eta **antiojoen** kristalak gero. Imanol Zurutuza

Antiojoen gainetik baina burua jaso gabe agurtu zuen iritsi berria. Josu Landa

Bi beharginei begira Patxi zaharra: hezur-giltza lokak, **antiojoen** atzean malkozko begiak, galtza argalak, zapatillak. Pablo Sastre

Nik aitari begiratzen nion ordea, berak **antiojoen** atzetik mahaian etengabe aztertzen zuen leku hari. Berria - Kultura

-Ezin dut sinetsi! -esan du ikusi nauenean, kristal sendoko **antiojoen** atzeko begiak asko irekiz. Jon Arretxe

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Itxura ere pelikuletako apaiz fatxa baten karikaturazkoa baitzuen: **antiojo** beltzak, begi txiki eta okerrak ezkutatzen zizkiotenak, ile beltz koipetsua, gai likatsuren batekin atzerantz orraztua. Xabier Mendiguren Elizegi

Antiojo handiak zeuzkan eta han, bulegoaren erdian zutik kieto, sabaiko argiek distira egiten zuten haren buru soilduan. Joxemari Iturralde

Antiojo txiki, borobilen atzetik begiak gorriturik zeuzkan eta muki urak zintz egiteko eskuoihal baten tamainako zapia eraman zuen. Iñaki Zabaleta

Urre koloreko **antiojo** kaxkarrak sudurrean behera zituen labainduak Pedriño irakurtzeko **antiojo** beheratuak jantzita zegoen idazmahai atzean. Xabier Mendiguren Elizegi

Kulunkaulkian haria biribiltzen zuen andreak, **antioju** borobil txikiak erantzi, ilaria alde batera utzi eta, ernegaturik, atea seinalatu zuen. Joseba Sarrionandia

Antiojo ilunak eta buru txuria, ilea xare-xare atzean bildua. Xabier Etxabe

Une batez **antiojo** ilunak erantzi eta eskuaz igurtzi nituen begi lausotuak. Joxemari Iturralde

Haiek tabernara sartu zirenean, **antiojo** iluneko bikotearen aldera begiratu zuen ostera. Pedro Alberdi

Jakako faltrikeran gorde zituen **antiojo** tolestuak. Josu Landa

Euskarri beltzezko **antiojo** modaz paseak janzten zituen. Jon Alonso

Hurbildu ahala, auto barruko irudiak, pertsonak, bere **antiojo** beltz parea, bere kapelua, bere gabardina eta bere egunkaria zituela ikusi nuen. Jon Alonso

Itsas txakur aurpegia zeukan gizona ere gogoan dut: gizena zen, bibote beltz lodia zeukan eta urrezko armazoidun **antiojoak**. Urtzi Urrutikoetxea

3 (hitz elkartuetan)

Antiojo saltzailea datorrenean, har ezazu pare bat niretzat! Pablo Sastre

-Ikusiko bazenu zelako jaiak antolatzen diren Irango hirietan ezkutuan! -esan dit, miope- **antiojoen** atzeko begiak asko-asko irekiz-. Jon Arretxe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antiojo beltzak** (3); **antiojo ilunak** (3)

---

antiojodun 1 *izond* betaurrekoduna.

Azpian larru zuriko gizon **antiojodun** bat agertu zen. Jon Alonso

Zoro begiradako soinu-jole **antiojodun** marmarti bat. Jon Arretxe

-Hara, lotan geratu da gure marmota **antiojoduna** -barre egin zidan Begoñak-. Patxi Iturritegi

Euskarri beltzezko **antiojoduna** hurbildu zitzaidanean Prostatas braust isildu zen Jon Alonso

2 ***antiojodun kobra.***

Antiojodun kobra 1,80-2,20 metro luze izaten da. Gotzon Garate

---

antioju ik **antiojo**.

---

antiokiar *izlag* Antiokiakoa, Antiokiari dagokiona.

Antiokiar hiritartasuna zuten jerusalemdar batzuk bidali zituen Jason nazkagarriak Beste lau mila kilo ordainduko zizkiola ere hitz eman zion, baldin eta bere kontura kiroldegia eta gazteentzako kirol-eskola eraikitzeko baimena ematen bazion eta Jerusalemgo bizilagunei **antiokiar** hiritartasuna ezartzen uzten bazion. Elizen arteko biblia

---

antionkogene *iz* onkogeneen eraina deuseztaten duen genea.

Geroago, **"antionkogene"** izeneko beste gene batzuk aurkitu ziren, onkogeneen eragina deuseztatzen zutenak. Juan Garzia

Antionkogeneek, berriz, hura galgatzen. Juan Garzia

Onkogeneen gehiegia edo **antionkogeneen** gutxiegia da minbizien kausa. Juan Garzia

---

antioxidante *izond/iz* antioxidatzailea.

Hori horrela bada, C eta E bitaminak hartzea ere ona izango da, **antioxidanteak** baitira biak. -Alkohola **antioxidante** onenetarik dela diote sendagileek-, errepikatu ohi du aldikal kronikariak. Berria - Gaiak

---

antioxidatzaile *izond/iz* oxidazioa eragozten duena.

Haien esanetan, txistuak molekula **antioxidatzaileak** ditu eta horiek hainbat gaitz hartzetik babesten gaituzte. Berria - Gaiak

Zientzialarien arabera, txokolate beltzak flabanol izeneko **antioxidatzaile** asko du, eta horrek bihotzaren inguruko zainak gogortzea galarazten du. Berria - Gaiak

Antioxidatzaile moduan ere balio dezakete era berean. Berria - Gaiak

---

antipapa *(corpusean ez dago; ETCn **182** agerraldi) iz* Vatikanoko Aita Santuaren legezko funtzioak eta botereak modu ilegitimoan bereganatzen zituena.

Protestak 1061ean jo zuen goia, "matxinada antolatu" batekin: Parmako gotzaina **Antipapa** hautatu zuten, Honorio II. tituluarekin, eta, gero, porrot egin zuen Erroma eskuratzeko ahaleginak. ETC-literatura, saiakera

Badirudi III. mendean San Ponzianok Hipolito **antipaparekin** batera kargua utzi zuela garai hartako zisma konpondu asmoz. ETC-prentsa

Antipapa legez kanpo hautatua izanik, Eliza Katolikoak halakotzat hartzen ez duen Aita Santua da. ETC-entziklopedia

Alexandro V.a Pisakoa, jaiotzez izenez Petros Philargos, Eliza Katolikoaren **antipapa** bat izan zen. ETC-entziklopedia

Aita Santu izendatu ondoren, Nikolas V.ari bere mendekotasuna eskaini zion (1449), eta hark kardinal izendatu zuen. Hura izan zen azken **antipapa**. ETC-entziklopedia

Horrela hartu zuen parte 1130eko konklabean eta Anakleto II.a **antipapa** izango zenaren aurka egin zuen gogor, Inozentzio II.aren aldeko izan baitzen. ETC-entziklopedia

Eugenio IV.a boteretik kendu zuten eta Felix V.a izendatu zuten **antipapa**. ETC-entziklopedia

Bere gaztaroan jatorrizko bekatu eta eroskundeari buruzko jendaurreko eztabaida famatua izan zuen Pedro Martínez de Lunarekin, gero Benedikto XIII.a Avignongoa **antipapa** bilakatuko zena. ETC-entziklopedia

antipar *iz pl adkor* betaurrekoak.

Beti bezala Ozamiz alde guztietatik liburuz eta paperez inguratua, eta **antipar** kaxkarrak ozta-ozta sudurraren puntan jarrita. Txillardegi

Paretik gazte lodikote bat pasa berri zen, txima endredatu koipetsuek estaltzen zioten **antiparra** biribil batzuk nabarmentzen ziren aurpegia. Unai Iturriaga

Jertsearen lepo gainetik aurpegi zuri mehe batek begiratzen zion, sudur zorrotz batean atseden hartzen zuten **antiparra** obalatu fin batzuetatik. Unai Iturriaga

Gizonezkoa bata (bizar eta ile luzeak, marko beltzezko **antiparra** galantak) eta emakumezkoa bestea (ilaje lisua eta hirulaurdeneko panazko jaka). Unai Iturriaga

---

antiparalelo *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi) izond/iz pl* elektronikan, polaritate alderantzikatuaz konektatutako paralelo-zirkuituak; elkarrekiko kontrako norabideetara jotzen dutenak.

Positiboa zein negatiboa izan daitekeenez gN, eta paralelo zein **antiparalelo** izan daitezkeenez μ eta I, bektore bien moduluen funtzioan idatz daiteke adierazpen hori: ETC-zientzia, zuzenbidea

Ohar zaitez, begiztaren oinarrian helize bikoitz labur bat dagoela, ohiko base-parekatzearekin eta harizpi **antiparaleloekin**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mikrotubulu **antiparaleloak** elkarrekiko irristaraziz, plus muturrerantz mugitzen diren proteina motor horiek ardatzaren poloak (eta horiei lotutako kromatidak) banantzen dituzte, eta zatitzen ari den zelula are gehiago luzatzen laguntzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aldiz, bi spinak parekatuak edo **antiparaleloak** dituzten bi elektroi orbital berean egon daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Iradoki genuen Y mekanismo delakoa (Cold Spring Harborreko idazlanean), baina ez genituen aipatu kate **antiparaleloen** sintesiaren norabideak dakartzan zailtasunak. ETC-zientzia, zuzenbidea

(B1-1) ekuaziotik ere, elkarren paraleloak (edo **antiparaleloak**) diren bi bektoreren biderkadura bektoriala nulua dela atera daiteke: 0=0° edo 180° denean, sin0=0. ETC-zientzia, zuzenbidea

Indar-momentua zero da p eta E paraleloak (0=0) edo **antiparaleloak** (0=n) direnean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Unitate arruntenak a helizea eta p harizpiak dira (tolestutako p orri paraleloak eta **antiparaleloak** eratzen dituzte) (ikus E1.8 IRUDIA). ETC-zientzia, zuzenbidea

Erdialdean mikrotubulu **antiparaleloak** kinesina proteinaren bitartez daude taldekatuta. ETC-entziklopedia

DNA **antiparaleloak** diren bi desoxirribonukleotido-kateez osatuta dago. ETC-entziklopedia

Eta, orbital batek, bigarren elektroi bat lortzen duenean, honek, lehenengoarekin parekatu gabe egon behar du (kontrako espinak edo **antiparaleloak**). ETC-entziklopedia

---

antiparasitario *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) izond* parasitoen kontrako sendagaia.

Antiparasitario gisa nahiko erabilia da, baina bertigoa, zefaleak, sukarra, goragalea, okak edo aldi baterako alopezia eragin ditzake. ETC-entziklopedia

Parasitoak: Gaixotasun parasitarioak edo parasitosiak ekartzen dituzte. **Antiparasitarioekin** tratatzen dira. ETC-entziklopedia

Metronidazola nitroimidazolen taldeko antibiotiko eta **antiparasitarioa** da. Guztiz sintetikoa da, naturan ez baitago bera ekoizten duen inongo organismorik. ETC-entziklopedia

Metabolismoaren zatiren bat funtzionatu gabe uztea: adibidez Amitrazak, albaitaritzako **antiparasitario** bezala erabilia, monoaminooxidasa edo MAO izeneko katekolaminen entzima katabolikoaren funtzionamendua inhibitzen duena. ETC-entziklopedia

Tratamendua **antiparasitarioen** erabileran datza. Hainbat kasutan kirurgia beharrezkoa izan daiteke, larbak erauzteko. ETC-entziklopedia

Antiparasitarioak: antihelmintoak, antimalarikoak, antiamebak, antiprotozooak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

antipartikula *iz* partikula elementala, artifuzialki sortua, elementu kimikoen atomoen kontrako nolakotasunak dituena.

Eztanda gaitzetik segundo bi milioiren batera, unibertsoaren tenperatura mila bilioi gradura "jausi" zelarik, han hasiko ziren partikulak eta **antipartikulak** ziztu bizian sortzen eta suntsitzen. Juan Garzia

---

antipatia *iz* norbaiten edo zerbaiten aurkako sentimena.

Badakit, bai, Sinpatia edo **Antipatia** hitzak lehen aldiz sarrarazi dituzten autoreek gauzen nolakotasun ezkutu batzuk adierazi nahi izan dituztela izen horiekin; baina, uste dut, halere, zilegi zaigula hitz horiekin berekin nolakotasun ezagun edo nabari batzuk ere aditzea. Piarres Xarriton

Nik banekien Lubisek **antipatia** ziola aitorpen pertsonalari, eta ez bakarrik nekazaria zelako, gauzak beste era batean -era diskretuagoan- egiten ziren aberrikoa. Bernardo Atxaga

Iritziaren oinarrian, herriko festei zien **antipatia** zegoen. Bernardo Atxaga

Haur edo ume [...] Adin, sexu edo izaera jakinik gabeko izaki aldrebesa, batez ere aipagarria besteengan sortzen dituen sinpatien eta **antipatien** indarra dela medio, berak sentimendu edo emoziorik izan gabe. Xabier Olarra

---

antipatiko **1** *izond* antipatia eragiten duena.

Handik aurrera absurdoak iruditu zitzaizkidan organizazioaren agiriak; are eta absurdoagoak atentatuak; arrotzak eta **antipatikoak** nire burkideak. Bernardo Atxaga

Siriako gudu-zelaietan kaliferriaren agintepeko lurrak inbaditzean Islamera konbertitu ziren turkiar barbaroak ez ziren arerio **antipatikoak** garai hartako kristau-zaldunentzat. Iñaki Mendiguren

Estazioa zen oso leku ezezaguna Matiasentzat, eta oso leku **antipatikoa**. Unai Elorriaga

Pentsatu zuen gauza noble-nobleak ere ez zitzaizkiola gehiegi gustatzen, eta kondeak, kondesak eta baroiak etorri zitzaizkion burura, horiek guztiak nobleak direlako eta **antipatikoak** direlako ia mundu guztiarentzat. Unai Elorriaga

Atxagak Chicagoko beltzekin konparatu gaitu euskaldunok, gure inguruan "sinpatikoak" eta **"antipatikoak"** ditugula eta hala gabiltza batzuetan euskaldunak. Pello Salaburu

Tronpeta izaki **antipatikoa** da. Unai Elorriaga

2 (izen gisa)

Ondorioz, oraindik ere **antipatikoek** euskaldun sentitzen ez direnek euskaldun izatea baserriarekin, nekazari munduarekin, herrixkarekin eta mendiarekin lotzen dute, eta baita atzerakoia, itxia, abadezuloa, garbiketa etnikoaren aldekoa eta abar izatearekin ere. Berria - Harian

3 (adizlagun gisa)

Denbora mundu honetan dagoen gauzarik geldoena delako susmoak pazientzia galarazi zion, apetatsu jarri zen, edo **antipatiko**, horixe izan zen behintzat Maria andreak bere kautan erabili zuen hitza. Jon Alonso

---

antipaxismo ik **antifaxismo**.

---

antipaxista ik **antifaxista**.

---

antipedagogiko *izond* pedagogiaren printzipioen aurkakoa dena.

Agian, diot, haurrari bere buruz galderak egiten uztea litzakeela munduko gauzarik ederrena, humanistena eta **antipedagogikoena**. Patziku Perurena

---

antiplagio *iz* plagioaren aurkakoa.

Aitor dezadan luzapenetan ibili gabe: testu hau **antiplagioa** da. Bernardo Atxaga

---

antipoda **1** *iz pl* Lurreko toki bati buruz, bertan mutur bat duen diametroaren beste muturreko tokia.

San Agustinek **antipodetan** izaki bizidunik egotea ezinezkoa zela esaten bazuen ere, Albertoren iritziz ez zegoen arrazoi zientifikorik aukera hori baztertzeko. Berria - Gaiak

Beste batek, berriz, nire zapatetako bat zeraman, sudurra hantxe sartuta, nire oinei zeriën lurrin ustez zerutiarra bete-betean usaindu nahian bezala, Roquefort-eko infernutik urrun, **antipodetan** doi. Joan Mari Irigoien

Mutur bi horietako biztanle guztiek burua zerurantz eta oinak haien **antipodenetara** begira dauzkate, eta, halere, ez da inola ere posible ez eta irudikagarria ere, horietako inor erortzea, ez baitaude batzuk goian eta besteak behean. Xabier Kintana

Folklore atomikoan ospetsu egin zen Txinako sindromea-ren fenomenoa (urturiko nukleoak Lurra alderik alde zeharka dezake, AEBetatik **antipodetaraino**, hau da, Txinaraino). Berria - Harian

2 irud/hed

Atxagak esan zuen aspaldian, berak mendian ezagututako jendearen **antipodetan** zegoela Joanes, eta egiazko artzain jendearekin harreman apur bat izan duen edonork gauza bera sinatuko luke. Xabier Mendiguren Elizegi

Atsotitzen ziurtasunaren beste muturrean, **antipodetan**, daude, egilearen ikuspegitik begiratuta, Isiltasunaren adabakiak liburua osatzen duten apunteak. Berria - Kultura

Bai, Gizon Handiak garbi ikusten zuen artikuluan zehar Idazleak ederki erakusten zuela zer neurriko irakurlea zen, itxuraz **antipodetan** zeudekeen bi mutur -Tristram Shandy eta terrorismo is lamiarra- bere kezken eta bizipenen araberako diskurtso koherente batean errenditzeko gauza izan baitzen. Jon Alonso

Kemen handikoa da gaiaren planteamendua, umeei askotan eskaintzen zaizkien argumentu koldar eta memeloetatik **antipodetan** dagoena. Berria - Kultura

Nork irudika lezake, zelten **antipodetako** greziar pentsalari noble estzeptiko haietakoren bat, euskaldunon artean erroak egiten? Patziku Perurena

Jatorririk, historiarik, aberririk eta batez ere ideologiarik gabe idatzi arren, ordea, bere literatura jolas hutsalaren eta zinismoaren **antipodetan** dago. Berria - Kultura

Borgesenak genero narratiboko beste mota batzuen **antipodetan** daude; nobelarenetan, adibidez. Juan Garzia

Uztailaren 8an Bilboko lehenengo alkate faxista ofizialak, Jose Maria de Areilzak, Ernest Hemingwayren beste haren **antipodetako** diskurtsoa egingo du, Falange Española Tradicionalista y de las JONS izen luzekoak Coliseo Albia antzokian. Edorta Jimenez

Deskuidatuz gero, zeharo aztoratuta izango da une honetan, **antipodetako** bere hamalaukidea bizitzen ari den drama pertsonala dela eta. Joxerra Garzia

---

antipositibista *iz* positibismoaren aurkakoa.

Baina konferentzia guztian atezu edo barne tentsio deseroso bat ohartzen da historia eta naturaren artean (ez Herder eta ez Hegel-ek daukatena, modu honetan behintzat; baina berriro topatuko duguna hein batean Ortega-rengan, **antipositibista** izan arren), Joxe Azurmendi

---

antiprisma *(corpusean ez dago; ETCn **76** agerraldi)* **1** *iz* poliedroez mintzatuz, oinarritzat bi poligono kongruente eta albo-aurpegitzat triangeluak dituena.

Geometrian, **antiprisma** oinarritzat bi poligono kongruente (berdinak, baina bata bestearekiko biraturik) eta albo-aurpegitzat triangeluak dituen poliedroa da. ETC-entziklopedia

Adibidez, iodo heptafluoruroa (IF7) ezagutzen da -badirudi horren egitura molekularrak bipiramide pentagonal baten itxura duela-, baita oktafluorotantalato ioia (TaF83 -) ere -molekula horrek **antiprisma** karratu baten itxura hartzen du, hau da, kubo bat non alde batek parez pare duenarekiko 45? biratu baitu-. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***antiprisma dekagonal*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Geometrian, **antiprisma dekagonala** oinarritzat bi dekagono (berdinak, baina bata bestearekiko biraturik) eta albo-aurpegitzat triangeluak dituen poliedroa da. ETC-entziklopedia

3 ***antiprisma endekagonal*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Geometrian, **antiprisma endekagonala** oinarritzat bi endekagono (berdinak, baina bata bestearekiko biraturik) eta albo-aurpegitzat triangeluak dituen poliedroa da. ETC-entziklopedia

4 ***antiprisma gurutzatu oktogramiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Geometrian, **antiprisma gurutzatu oktogramikoa** izar-poliedro uniforme bat da, albo-aurpegitzat hirukiak eta oinarritzat bi oktograma dituena. ETC-entziklopedia

5 ***antiprisma heptagonal*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Adibidez, bi oinarriak hexagonoak dituen prisma batean (bi oinarriek zentro bera dute, baina bata bestearekiko /7 radian biratuta dago), bi oinarrien hamalau erpinak lotzen dituzten hogeita zortzi ertz daude eta irudiak, beraz, hamalau albo-alde triangeluar ditu: **antiprisma heptagonal** simetriko bat da. ETC-entziklopedia

6 ***antiprisma hexagonal*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Geometrian, **antiprisma hexagonala** oinarritzat bi hexagono (berdinak, baina bata bestearekiko biraturik) eta albo-aurpegitzat triangeluak dituen poliedroa da. ETC-entziklopedia

7 ***antiprisma karratu*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Geometrian, **antiprisma karratua** oinarritzat bi karratu (berdinak, baina bata bestearekiko biraturik) eta albo-aurpegitzat triangeluak dituen poliedroa da. ETC-entziklopedia

Baita oktafluorotantalato ioia (TaF83 -) ere -molekula horrek **antiprisma karratu** baten itxura hartzen du, hau da, kubo bat non alde batek parez pare duenarekiko 45º biratu baitu-. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***antiprisma karratu kamuts*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Geometrian, **antiprisma karratu kamutsa** Johnsonen solidoetako bat da ("J"85). ETC-entziklopedia

9 ***antiprisma oktogonal*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Geometrian, **antiprisma oktogonala** oinarritzat bi oktogono (berdinak, baina bata bestearekiko biraturik) eta albo-aurpegitzat triangeluak dituen poliedroa da. ETC-entziklopedia

10 ***antiprisma oktogramiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Geometrian, **antiprisma oktogramikoa** izar-poliedro uniforme bat da, albo-aurpegitzat hirukiak eta oinarritzat bi oktograma dituena. Antiprisma ez ganbilen multzo infinituko poliedro bat da. ETC-entziklopedia

11 *antiprisma pentagonal* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Geometrian, **antiprisma pentagonala** oinarritzat bi pentagono (berdinak, baina bata bestearekiko biraturik) eta albo-aurpegitzat triangeluak dituen poliedroa da. ETC-entziklopedia

---

antiprotestante *izond* protestantismoaren aurkakoa.

Giro horretan, kasualitatea ote da Lazarragaren eskuizkribuan dauden poema erlijiosoak gaztelaniaz egotea, eta maitasunezkoak euskaraz? Beste hitz batzuetan: zergatik Joanek ez zuen bere eskuizkribua argitaratu? Ba ote du zerikusirik 1568tik aurrera Filipe erregeak daraman politika **antiprotestante** gogorrak? Berria - Kultura

---

antiprotoi *(corpusean ez dago; ETCn **87** agerraldi) iz* protoiaren antipartikula.

Gerora detektatu ziren **antiprotoiak** , eta antineutroiak... ETC-prentsa

Matematikak esaten zuen elektroiak bere kontrako kargako antielektroia (positroia) zuen moduan naturak ere simetria hori gorde behar zuela eta, adibidez, protoiak **antiprotoia** izan behar zuela. ETC-prentsa

Kolore bidez biziagoturiko burbuila-ganbera honetan **antiprotoi** erasotzaile batek eta pausagunean dagoen protoi batek elkar deuseztatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antiprotoi eta positroi batez osatuta dago, beraz hidrogenoaren propietate berak ditu, baina alderantzisko karga elektrikoekin. ETC-entziklopedia

Adibidez, "antielektroi" batek (karga positiboa duen elektroia, positroi ere deitua) eta **antiprotoi** batek (karga negatiboa duen protoia) antimateriazko atomo bat sor lezakete, elektroi batek eta protoi batek hidrogeno atomo bat eratzen duten era berean. ETC-entziklopedia

Tenperatura jada ez zen hain handia protoi-**antiprotoi** bikote berriak sortzeko, ezta neutroi-antineutroiak sortzeko, beraz masa suntsiketa bat gertatu zen momentu horretan, protoi eta neutroi bat utziz 1010eko, eta antipartikula guztiak suntsituz. ETC-entziklopedia

Protoi-**antiprotoi** bakoitzeko ere protoi kopuru berdina gelditu zen aske, barioi asimetria izeneko fenomenoari jarraituz eta unibertsoaren karga osoa nulu eginez. ETC-entziklopedia

Beste pare askoz masiboak, hala nola, protoi eta **antiprotoi** parea, gutxienez 1,88 GeV-etako energiadun fotoiak beharko lirateke (gamma izpi gogorrei dagokien energia balioa). ETC-entziklopedia

1956an CERN Ikerkuntza Nuklearreko Europar Kontseiluan sartu zen, **antiprotoi** metagailuaren taldeko ingeniari gisa. ETC-entziklopedia

---

antipsikiatria *iz* ohiko psikiatriaren aurkako teoria eta praktika psikiatrikoen multzoa.

Lia, Milanen egindako **antipsikiatria** mugimenduaren batzar batean jasotako ordu erdi baino gehiagoko plano sekuentzia da. Berria - Kultura

---

antipsikoanalisi *iz* ohiko psikiatriaren aurkako teoria eta praktiken multzoa.

Baliteke hurbilketa hori zenbaiti eskandaluzkoa iruditzea, kognitibismoaren (eta, horrenbestez, **antipsikoanalisiaren**) leku gorenetako batetik, MIT-etik, Massachusetts Institute of Technology-tik, abiatu baitzen, orain dela hamarren bat urte, irudi mentalen azterketa. Josu Zabaleta

---

antipsikotiko *iz* psikosiaren aurkako farmakoa.

Zentzu horretan, Saiz psikofarmakoen eragingarritasunaz aritu zen: antidepresiboak, litioa, **antipsikotikoak** ... Berria - Euskal Herria

---

antiquark *iz* quarkaren aurkako partikula elementala.

Gertatu ez balitz gehixeago izatea elektroiak antielektroiak baino eta quarkak **antiquarkak** baino, partikula arruntak, materiaren oinarri-oinarrian daudenak, absente leudeke gaur egun unibertsotik. Juan Garzia

---

antiretrobiral *iz* erretrobiralen aurkako sendagaia.

Garaik berak azaldu zuen jauzi hori emateko erabakigarria izan zela medikuntzak duela zortzi bat urte **antiretrobiral** koktelen alorrean emandako pausoa. Berria - Euskal Herria

---

antirrazionalismo *iz* arrazionalismoaren aurkako joera.

Politiko gisa zituen modernitate errepublikarra eta **antirrazionalismo** gnostikoa. Askoren artean

---

antirrazista *(ETCn **33** agerraldi, horietatik **29** azken sei urteetan) iz* arrazismoaren kontrakoa.

Baina Azorín, arrazialista izan arren (arrazaren karakterea, etab., aintzat hartzen dituena), **antirrazista** izan dela, esan behar da. Joxe Azurmendi

Arrazarekin uler daiteke "zerbait kosmiko eta arimazkoa", Spengler-ek egiten duen bezala (beren-beregi kontzeptu biologistaren aurka); hots, ukan liteke historiaren filosofia bat arrazaren erabilera franko deigarriarekin, eta **antirrazista** izan (arrazismo nazistaren aurkaria kasu honetan). Joxe Azurmendi

---

antirreflexibo *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi; soilik **erlazio antirreflexibo** hitz elkarketan erabiltzen da)*.

1 *erlazio antirreflexibo*

Erlazio erreflexiboaren aurkako den R erlazioari, hots, A-ko inolako elementurik ez badago bere buruarekin R-ren bidez erlazionatuta, **erlazio antirreflexiboa** deritzo. ETC-entziklopedia

---

antirrelatibismo *iz* errelatibismoaren aurkako joera.

Batzuetan **antirrelatibismoak** arrazoimenaren interes legitimoak ordezka ditzakeenik, ez dugu ukatuko. Joxe Azurmendi

---

antirrelatibista

Ondo begiratuta, antropologo hauek dagitena ez da **antirrelatibista**, justu ikerketan erlatibotasunari jaramon gehiago egiteko esijentzia baizik. Joxe Azurmendi

Krisiaren orokartze honen historian, erlatibistak eta **antirrelatibistak**, bi fronte modu intelektual hauexen gisan banatuak ikusten zituen Straussek 1950 aldera jada Estatu Batuetan. Joxe Azurmendi

Horra, ba: **antirrelatibistaren** barruan kuku, tomista bat dago mozorrotuta! (Pentsamendu espainolean harritzekoegia ez dena). Joxe Azurmendi

---

antirrepresibo *(orobat **antierrepresibo**) izond* errepresioaren aurkakoa.

Horrekin guztiarekin, behin eta berriro gertatu diren ilegalizazio estrategiekin gauzatu duten zapalkuntza antidemokratikoaren bidez bideratu duten dinamika **antirrepresiboan** desobedientzia eta erresistentzia formetaz baliatu dira. Berria - Euskal Herria

Balantzearen datuekin parez pare, Euskal Herri osoan gertaerei emaniko erantzuna ere azpimarratu zuen Askatasunak, "balantze **antierrepresiboak** kezkari baikortasuna" jartzen diola iritzita. Berria - Euskal Herria

Beste aldean, balantze **"antierrepresiboa"**. Berria - Euskal Herria

---

antirretrobiral *(corpusean ez dago; ETCn **55** agerraldi; orobat **antierretrobiral** ETCn **19** agerraldi) izond/iz* erretrobirusen kontrakoa.

Antirretrobirala edo erretrobirus-kontrakoa erretrobirusen ugalketa edo eragina eragozteko gaitasuna duen botika da. Erretrobirusek hainbat gaitz infekzioso eragiten dute, ezagunena HIESa izanik. Zidovudina, azidotimidina (AZT) ere deitua, izan zen lehenengo **antirretrobirala**; 1980ko hamarkadaren bukaeran hasi zen baliatzen HIESaren tratamenduan. Gaur egun, erretrobirusen kontrako eraginkortasun handiko tratamenduak (HAART) erabiltzen dira, bi **antirretrobiral** edo gehiago konbinatzen dituztenak. ETC-entziklopedia

Antirretrobiralen tratamenduak pasa-pasa eginda uzten zuen, hainbesteraino, hiesak edo medikazioak, lehenago zerk eramango ote zuen zalantza egin baitzuten etxean. ETC-literatura, saiakera

Antirretrobiral sendabidearen aldeko kanpainan sartu izanak ere gorabeherak sortu zizkion Mbekirekin, honek eta Osasun ministroak tratamendu horren aurkako jarrerari eutsi baitzioten. ETC-literatura, saiakera

60 pilulatik gora hartzen nituen egunean, 20-25 **antirretrobiral** eta gainerakoak bigarren mailako ondorioak saihesteko. ETC-prentsa

GIB birusa dutenen %95 Afrikan bizi dira, eta tratamendu **antirretrobiralaren** bidez bestelako gaitzak harrapatzea eragotzi nahi da. ETC-prentsa

Antirretrobiralen hedapenari esker hiesari beldurra galdu izana, sexu-harreman arriskutsuak izateko joera handitzen ari baita. ETC-prentsa

Plasmako GIB RNAren kopia kopuruaren aldaketa-tasa, botika **antirretrobiralen** bidezko terapia hasi ostean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Botika **antirretrobiral** eraginkorrak garatu dira, baina infekzioak hedatzen jarraitzen du terapia horiek oso eskuragarri ez dauden lekuetan, eta, Afrikako herrialde batzuetan, biztanleriaren % 30ek baino gehiagok du GIBak eragindako infekzioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

antirrokoko *izond* rokoko estiloaren aurkakoa.

Euskaldunak arte **antirrokokoa** egin du, ez du bilatu edertasuna, pragmatikotasuna baizik". Berria - Kultura

---

antirromantiko *izond/iz* erromantizismoaren aurkakoa.

Ortega Alemanian ikastetik dator eta (nahiz Dilthey ez omen zuen irakurri oraindik), ezagutzen ditu hango erreakzio **antirromantikoa** eta *Volksgeist*aren kritikak. Joxe Azurmendi

Bere buruaz "je suis né romantique" aitortzen zuena aukeratzea hain zuzen-zuzen **antirromantikoaren** eta ilustratuaren papera protagonizatzeko, erraz ulertzen ez dena da, eta dudak sortarazten dituena. Joxe Azurmendi

---

antirromantizismo *iz* erromantizismoaren edo erromantikoa denaren aurkako joera.

Mende buruko positibismoan hain zuzen (**antirromantizismoan**!), eta Frantziako Iraultzatik ehun urtera. Joxe Azurmendi

---

antisemita *(orobat **antisemitista** g.er.)* **1** *izond* antisemitismoarena, edo joera horrekin zerikusia duena.

Teleki da Hungariako kontraesanen adibide argia: Rutenia okupatu zuen laster, lege **antisemitak** ere egin zituen. Urtzi Urrutikoetxea

Film **antisemita** dela argudiatuta jarri zuten demanda, baina Florence Lagemi epaileak ebatzi duenez, "Gibsonen lanak ez du herri judutarren kontra egiteko biderik erabili", eta, ondorioz, ez dago hura debekatzeko nahikoa arrazoirik. Berria - Kultura

Israelen juduei zuzendutako karikatura **antisemiten** lehiaketa abiatu zuten atzo, hango bi artistak. Berria - Mundua

Maxen arreba aktorea Alemaniara joango da, giro **antisemita** puri-purian dagoenean. Berria - Kultura

Frantziako Gobernuak herenegun "onartezin" iritzi zion Israelgo lehen ministro Ariel Sharonek, eraso **antisemiten** aurrean, judu frantziarrei Israelera "berehala emigratzeko" eginiko eskaerari. Berria - Mundua

Azkenengo horretaz gehiago hitz egiten du, baina olatu **antisemita** baretu arte itxoiteko esanaz idatzi diot. Ramon Etxezarreta

Frantziako juduen egoera kezkagarria da, baina hau ez da herri **antisemita** bat. Berria - Mundua

Lazavert doktorea, Vladimir Purishkievitx eskuin muturreko politiko **antisemita** eta Sukhotin tenientea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hantxe utzi ninduen landa-aldean bere guraso eskuindar **antisemitekin**, eta, egoera hartan, minutu bakoitza gozatzen ari nintzelako itxurak egin, besterik ezin nuen. Oskar Arana

Literatura arrazista eta **antisemitako** topiko andana bat. Joxe Azurmendi

Ortega-k, horri guztiari erantzuteko esplikazio zinez filosofiko bezala, hots, razional eta zientifiko bakar bezala, irtenbide arrazialista aurkeztu du, arrazista garbia zenbaitetan eta **antisemita** lotsagarria noizbait. Joxe Azurmendi

Egia esan, gehienek gorrotatzen zuten Rasputin: ezkerrekoentzat mistiko atzerakoia eta **antisemita** arrazista zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Xenofobo eta **antisemita** itzela ere bada Baroja, judufobia birulento partikularrekoa bereziki. Joxe Azurmendi

Oso atzerakoia, abertzalea eta **antisemita** zen erakundea. Felipe Juaristi

2 *iz* antisemitismoaren aldeko pertsona.

Ni, aita ez bezala, ez bainintzen inola ere **antisemita**, nik uste. Joxe Austin Arrieta

Juduak halako moduan deskribatzen nituen non **antisemitek** ere propaganda gisa erabil zitzaketen nire idatziak. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antisemita bat** (3); **eraso antisemita** (3)

---

antisemitismo *iz* juduen aurkako joera edo jokaera sistematikoa.

Auschwitz-ekoa gertatu eta gero poesia egiten jarraitu dugu, baina hori baino deigarriagoa da **antisemitismoa** ez desagertu izana, harrigarria halaber orduko gehiegikeria haiei gehiegikeria are ankerragoak metatu izana. Anjel Lertxundi

Israelek denak bahituta ditu, eta baten bat ahotsa altxatzen hasiz gero, **antisemitismoa** egozten dio. Berria - Mundua

Neurt daiteke egiazki zer den **antisemitismoa** Frantzian. Herria

Bere aurpegierak, bere keinuek, bere ahotsaren emozioak, bere judutasuna aldarrikatzen dute, nahi duen bezala deituta ere, eta **antisemitismoak** benetako indarra baldin badu egin dezakeen hoberena une honetan Alemanian sartzen ez menturatzea da. Ramon Etxezarreta

Antisemitismoaren eta lurralde jakin bateko biztanle guztiak hartzen dituen komunitate homogeneo baten Mendebaldeko kristau-idealaren arteko lotura estua judu-diasporak Iberiar penintsulan izandako historian agertzen da. Iñaki Mendiguren

Ezarian-ezarian, **antisemitismoaren** gaitza Frantzia guztira zabaltzen ari da. Iñigo Aranbarri

Arendt-en ebaketa garbia -Totalitarismoaren iturburuak- **antisemitismo** tradizional erlijioso eta moderno biologiko-arrazistatan, hain garbi-garbia ez dela, aitortu behar da; eta, batez ere, biak bereiztea zilegi bada, kontrajartzerik ez dagoela. Joxe Azurmendi

Israel eta Frantziaren arteko giroa sumindu egin zuten Sharonek, iragan uztailaren 18an, Frantziako juduei Israelera bizitzerat etortzeko aholkatu zielarik, Frantzian bizi ei den **"antisemitismo** basatiagatik". Berria - Mundua

Sustraiak askoz urrunago eta sakonago daude Europa osoan (Iberiar Penintsulan XV. mendean egotzi zituztenez -horra **antisemitismo** gordinenaren adibide argia-, askoz ahulago gelditu zaigu horren guztiaren zantzua). Urtzi Urrutikoetxea

Nahiz eta jatorri judua izan, Fischerrek **antisemitismo** zantzuak erakutsi ditu azken urteotan. Berria - Kirola

Oraindik aspaldi ez dela horrelako gauzarik sinistu ere egin ezin zitekeen zenbait lekutan **antisemitismo** gertaerak ari omen dira sortzen. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antisemitismoaren aurka** (3)

---

antisemitista ik **antisemita**.

---

antisentimental *izond* sentimentalismoaren aurkakoa.

Guk euskaldunen tradizio **antisentimentala** atxikitzen dugu, gure solas hitzez baino isiltasunez beteagoan. euskaldunen ekandu **antisentimentalak** ahaztuz, antropofagia apur batekin besarkatu dugu batak bestea, musua ahoan emanez, mihi bakoitzak beste mihiaren lekua hartu nahirik, lehenago inoiz okerreko ahoan geratu eta mihiek orain zeinek bere lekua errekuperatu nahi balute bezala. Joseba Sarrionandia

---

antiseptiko *izond/iz* germenak suntsitzen dituena; germenak suntsitzeko erabiltzen den gaia.

Gogoz kontra dutxatzen edo bainatzen ginen orduan, baina gaur geure gogoz uzten diogu bidea zabalik garbiketa **antiseptikoari**, garbiaren garbitu-behar paranoikoari. Iñaki Segurola

Negar-jariakinaren emari etengabea (substantzia **antiseptikoak** dituena) eta kliskadaren maiztasuna (hiru segundotik behin, gutxi gorabehera). Etxeetan ez da **antiseptikorik**. Irene Aldasoro

Bidean zauria sendatu zidan, han zirikatzen aritu zen eta **antiseptikoaren** erredura sentitu nuen, baina hori ez zen kezkatzen ninduena. Xabier Olarra

Ez bota lozio madarikatu horietakorik, aski da hamameli-ur apur bat edo edozein **antiseptiko**. Lopez de Arana

Presta-lana amaiturik, hor ekin zion Bennettek lan benetakoari: **antiseptiko** iododuna ipur-masailean kotoi-zati batez eman, eta anestesia lokala injektatu zion, batere dardararik gabe. Xabier Olarra

Leku horietako **antiseptiko** usaina. Lourdes Oñederra

Horrelaxe kontuak, bazirudien faxista haiek, William Hays delako baten gidaritzapean, beren **antiseptikoa** barreiatu zutela zinemaren munduan. Karlos Zabala

---

antisimetriko *(corpusean ez dago; ETCn **145** agerraldi)* **1** *izond* simetrikoa ez dena.

Espazio horretan eremu bektorial baten edo eremu horretatik erator daitekeen eremu tentsorial **antisimetriko** baten existentzia suposatzen badut, eta eremu horrek bete ditzakeen legerik sinpleenak zein diren galdetzen badut, espazio hutseko Maxwellen ekuazioak lortuko ditut. ETC-literatura, saiakera

Elektroi-sistema baten uhin-funtzioak bi elektroi edozeinen arteko trukaketarekiko **antisimetriko** izan behar du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Richard Kayne (1994) hartzen du abiapuntu hurbilketa horrek, eta buru-osagarri/osagarri-buru aukera simetrikoen kontrakoa denez, "sintaxi **antisimetrikoa**" deitzen diogu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erlatibitate orokorrean biraketa puntuko partikulak txertatzeko, antzeko lotura orokortu bat behar zen zati **antisimetrikoa** sartzeko, bihurdura deitzen dena. ETC-entziklopedia

Erlazio bitar batek propietate **antisimetrikoa** du (a,b) eta (b,a) bikote ordenatuak aldi berean erlaziokoak izateak a=b izatera behartzen duenean, hau da a eta b elementuak elementu berbera izatera behartzen duenean. ETC-entziklopedia

Hau, bi partikulen elkartrukearekiko, fermioien uhin funtzioa **antisimetrikoa** delako eta bosoien uhin funtzioa simetrikoa delako da. ETC-entziklopedia

2 ***matrize antisimetriko*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ezaguna den moduan, **matrize antisimetriko** baten diagonal nagusiko elementuak nuluak dira eta horixe da kasu honetan ere lortu duguna. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edozein matrize karratu matrize simetriko baten eta **matrize antisimetriko** baten batura gisa deskonposa daiteke honela: ETC-entziklopedia

---

antisistema *izond* sistemaren aurkako dena.

Gaur egun Irujo bakarrik da gai joko lotsagabe **antisistema** egin eta eztanda horretatik onik ateratzeko. Berria - Kirola

Hura zen gure eredu asanbleario eta **antisistema**. Urtzi Urrutikoeetxea

Hura zen gure eredu asanbleario eta **antisistema**. Urtzi Urrutikoeetxea

---

antisocial ik **antisozial**.

---

antisorgailu **1** *iz* ernalketa eragozten duen gaia edo gauza.

Antisorgailu bezala baginaren hondoan ipini behar nuen diafragma bat eta gel espermizidaz betetako botilatxo pare bat eman zizkidan. Joseba Urteaga

Halaber, urte hartan pastilla itxurako **antisorgailua**, "pilula" famatua, jarri zen salgai. Pello Salaburu

Hori guztia munduan garapen bidean dauden herrialdeetan **antisorgailuak** erabiltzea bultzatuz konpon liteke, NBEren arabera. Berria - Gaiak

Antisorgailuak lagata, ia-ia menopausiaren kontrako partxeak bilatzen hasteko bidean zegoen emakumea nintzen. Jasone Osoro

Antisorgailuek ez dutela erabateko segurtasunik eskaintzen gogoratzen du kanpainak. Berria - Gaiak

Batera bizitzera jarri ginenean argi adierazi baitzidan Ritak, sexu gai horietan neu izanagatik jakitun, berak ez zuela sekula **antisorgailurik** hartuko. Hasier Etxeberria

Antisorgailurik bazen ordurako, baina metodorik ziurrena ipurditik hartzea zen, milaka urte ditu arte horrek, ezin da alferrik galtzen utzi. Karlos Zabala

Antisorgailu estrogenodunek positibo emango dute dopin kontroletan. Berria - Euskal Herria

Erabilitako **antisorgailu** sistemak huts egin badu biharamuneko pilula deitzen zaiona hartzeko aukera dagoela azaldu du sexologoak. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo gisa)

Eranskailu biribil bat, bertan jarria egunero pilula **antisorgailua** hartu behar zuela gogorarazteko. Joxemari Iturralde

Pilula **antisorgailua** aipatzen denean, arazoa eta ardura emakumeena direla bururatzen zaigu guztioi. Berria - Euskal Herria

3 ***ahotiko antisorgailu*** *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Ahotiko antisorgailua edo pilula antikontzeptiboa hormonaz osatutako sintesiko pilula da, ahoz hartzekoa, obulaziorako ezinbestekoak diren baldintza bat edo gehiago blokeatzen dituena emakumearengan. ETC-entziklopedia

Ahotiko antisorgailuak hartzeak ere migraina bat martxan jar dezake. ETC-prentsa

Badira bagina ingurua aldatzen duten botikak (antibiotikoak, **ahotiko antisorgailuak** ...); horien erabilerak gora egitean onddoen ugalketa errazten da. ETC-prentsa

Antibiotikoak, **ahotiko antisorgailuak**, antihistaminikoak, lasaigarriak, analgesikoak eta depresioaren kontrako botikak denbora luzean hartuz gero, zure ahoko listuaren kantitatea eta kalitatea gutxitu egingo da, eta ahoa babesik gabe geratuko da. ETC-prentsa

AEBetan eta Europan egindako ikerketa ugarik erakutsi bezala, partxe horien efektu sekundarioak pilula edo **ahotiko antisorgailuen** oso antzekoak izan dira. ETC-prentsa

Albo ondorioak, ordea, hain izan ziren nabarmenak, ezen **ahotiko antisorgailuen** kaxetako argibide orrian zehaztu behar izan baitzituzten azkenean. ETC-prentsa

4 ***diafragma antisorgailu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Diafragma antisorgailua latexez estalia dagoen uztai bat da, baginaren buruan sartzen dena, eta espermatozoideak umetokira sartzea eragozten du. ETC-entziklopedia

5 ***pilula antisorgailu***

Ondorioak izanik ere, batzuetan harrigarria da ematen den diru kopurua: 2002ko apirilean, esate baterako, **pilula antisorgailuen** asmatzaileetako Herchel Smith kimikariak 100 milioi dolarreko txeke bat eman zion Harvardeko unibertsitateari. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Aknea sendatzeko erabiltzen den **pilula antisorgailu** bat aztertzen ari dira Erresuma Batuko osasun agintariak, nahi gabeko eragin larriak dituela susmatuta. Berria - Gaiak

Pilula antisorgailua aipatzen denean, arazoa eta ardura emakumeena direla bururatzen zaigu guztioi. Berria - Euskal Herria

Baita bainugelan ere, Lucy sartu eta berehalaxe aurkitu baitzuen ohartarazle gorria -eranskailu biribil bat, bertan jarria egunero **pilula antisorgailua** hartu behar zuela gogorarazteko- betiko lekuan zegoen, ispilu handiaren erdialdean itsatsita bere aurpegiaren parean. Joxemari Iturralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bidezko antisorgailua** (3)
> **antisorgailuak erabiltzea** (3)

---

antisozial *(orobat **antisocial** g.er.) izond* elkarbizitza sozialaren aurkakoa.

Bere instintu **antisoziala** handitzen ari zitzaion, aberatsaren kontrako gorroto eta behartsuaren aldeko sinpatia ari zen bihurtzen. Josu Zabaleta

Nafarroako eta EAEko gobernuen izaera "kapitalista, **antisoziala** eta neoliberala" salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Neurri **antisoziala** eta atzerakoia da. Berria - Euskal Herria

Portaera sozial desegokiak eta **antisozialak** saihestea. Berria - Euskal Herria

EAEko Udalerrien Elkartearen (Eudel) "proposamen **antisozialak**" onartu izana kritikatu zuen ELAk. Berria - Euskal Herria

Batzordearen ustez, "Frantziako PSren garaipena, eskuinaren higadura ziklikoaren eta politika **antisozialen** kostuaren" ondorioa da eta ez dago programa politiko eta ekonomiko alternatiboan oinarrituta. Berria - Ekonomia

Baita preso **antisozialak** ere. Alberto Ladron Arana

Frazerren iritzia zera da, erlijio nagusiak funtsean eta erremediorik gabe **antisozialak** direla. Iñaki Mendiguren

---

antisubiranista *izond* subiranismoaren aurkakoa.

Praxi politiko eta ekonomikoa erabat **antisubiranista** da. Berria - Ekonomia

---

antitaurino *(ETCn **54** agerraldi, horietatik **40** azken sei urteetan) izond* zezenketen aurkakoa.

Bere sen **antitaurinoa** guztiz alditxartzen da. Karlos Linazasoro

---

antiteismo *iz* teismoaren aurkako jarrera.

Antiteismoa bai izan zen erromatar munduaren legitimazioaren zutabe nagusietako bati eraso ziona. Xabier Amuriza

Esan izan da hori bizitza aktiboari, erromatarren ikuskera politikoari eta haien bizi idealari hain berezko zaionari, erasotzeagatik izan zela; baita maitasuna sumintasun eta zorotasun gisan kontzebitu zuelako ere, horrek erromatar elegiazaleak azaltzen ari ziren ikuskera kolpatuko zuelarik; eta bere **antiteismoari**. Xabier Amuriza

Baina **antiteismoa** bai izan zen erromatar munduaren legitimazioaren zutabe nagusietako bati eraso ziona. Xabier Amuriza

---

antiteknika *iz* ohiko teknikaren aurkako teknika.

Kaña edan zenuen edalontzia horizontal eutsiz, muturra eta baita sudurra ere barrenean sartuz; non ikasi ote zenuen **antiteknika** hura?, auskalo. Eider Rodriguez

---

antitekniko *izond* teknikatren aurkakoa.

Hori guztiz posizino **antiteknikoa** da. Xabier Amuriza

---

antitermiko *iz* sukarra kentzen ed moteltzen duen sendagaia edo erremedioa.

Tratamenduan jarri dute antiemetiko eta **antitermikoekin**; dieta eta ura. Berria - Kirola

antiterrorismo *iz* terrorismoaren aurka aritzeko jarduera legal eta polizialen multzoa.

Antiterrorismoa, idazleak eta adierazpen askatasuna du izenburu herenegun Nazioarteko PEN elkarteak izena aldatu diote orain gutxi arte PEN Club zenari Bartzelonan aurkeztutako lanak. Berria - Euskal Herria

EBko txandakako presidente Bertie Ahern Irlandako lehen ministroa ere bada "baikor" ageri zen atzo, "EBko kideek arlo ekonomikoan, **antiterrorismoan** edota Konstituzioaren inguruan erakutsitako borondate politikoagatik". Berria - Mundua

Bata da munduaren jaun eta jabeek praktikatzen duten **antiterrorismo** prebentiboa, eta bestea ni azpiko naukan estatuak asmatu duen ekuazio juridiko-metafisikoa, zeinaren arabera x-ren ingurua=x (non x eskuarki hemengo ez-legezko kuadrilla armatua baita). Iñaki Segurola

Juduek berriz diote ezetz, **antiterrorismoarena** dela. Herria

---

antiterrorista *izond* terrorismoaren aurkakoa.

70 miliar euro badituzte baztertuak jadanik 2010 urtean idekia izanen den zentro **antiterrorista** baten eraikitzeko, eta inguruetako errepublika ttipiak ere jakinean daude hola, prestu egoitea hobeko dutela sobera mugitu gabe. Herria

Atal **Antiterroristako** epaile Laurence Le Vert, Gilbert Thiel eta Jean-Louis Bruguierek abiatutako operazioetan. Berria - Mundua

Israelgo Justizia ministro Yosef Lapidek "nazioarteko sare **antiterrorista** bat" abia dezala eskatu zion bere gobernuari. Berria - Mundua

Castela abertzale korsikarraren defendatzaileak Frantziako Polizia eta Justizia **antiterroristaren** legez kanpoko jokabideak salatu ditu. Berria - Mundua

Parisko Fiskaltzak ikerketa judizial bat hasi zuen joan otsailaren 18an, eta horren ardura Jean-Louis Bruguiere eta Philippe Corre magistratu **antiterroristen** eskuetan jarri. Berria - Mundua

PSOEk tentazioa izan dezake bi batzordeekin jokatzeko, baina batez ere garrantzia Itun **Antiterroristaren** batzordeari emanez, batzordea erabakitzaile bihurtuz eta bestea batzorde informatibo bihurtuz. Berria - Euskal Herria

PSOEk itun hori hautsi duela, eta PPri "politika **antiterroristari** buruzko" informaziorik ez diola ematen salatu zuen Raxoik. Berria - Euskal Herria

Egun horiexetan atxilotu zituzten Madrilen ETA militarreko bi lagun, Ixidro Etxabe zumaiarra eta Joxe Arregi zizurkildarra; hamar eguneko epea zuen poliziak, lege **antiterroristaren** arabera, atxilotuak torturatu eta ahalik informazio gehiena ateratzeko, baina hamar egunak bete baino lehen hil zitzaien Joxe Arregi. Xabier Mendiguren Elizegi

Inkomunikatuta dago, badakizu, Lege **Antiterroristaren** arabera. Iban Zaldua

Europa borroka **antiterroristaren** estrategia globalaren menpe jarri da. Berria - Euskal Herria

Oinarrizko giza eskubideak urratzen dituzten legedi eta instituzio **antiterrorista** bereziak ukatu beharko lituzke Konstituzioak. Berria - Mundua

2002ko apirilean Fiskaltza **Antiterroristak** haren kontrako karguak kentzeko eta aske uzteko eskatu zuen. Berria - Mundua

-Brigada **antiterroristarekin** zaudela...! Agurtzane Juanena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antiterrorista bertan behera** (3); **borroka antiterrorista** (3); **itun antiterrorista** (12); **lege antiterrorista** (9); **legedi antiterrorista** (4); **legedia antiterrorista** (4)
> **fiskaltza antiterroristak** (5); **lege antiterroristak** (3); **polizia antiterroristak** (4)
> **batzorde antiterroristako** (3)
> **itun antiterroristan** (5)
> **borroka antiterroristaren** (3); **itun antiterroristaren** (7); **lege antiterroristaren arabera** (3)

---

antitesi *iz* pertsonez eta gauzez mintzatuz, beste pertsona edo gauza bati erabat aurkakoa eto aurrez aurrekoa zaiona.

Alde horretatik, gidoia literaturaren **antitesia** da. Berria - Harian

Tomelloso Alcolearen **antitesia** zen, hark esaten zuenez Baztertzea da sozializazioaren **antitesia**, eta masako langabezian, xenofobia berpiztu berrian eta familiak desegitean nabarmentzen da bereziki. Josu Zabaleta

Dialektiko zorrotza bada ere, aurkezten du tesia, aurkezten du **antitesia**, baina nekatuegi gelditzen da sintesiraino iristeko, edo ahantzi egiten zaio. Markos Zapiain

. bi horien arteko kontrakotasun kasik erabatekoak -tesia eta **antitesia**, lagun jakintsu joan berriak erranen zukeenez- malgutasuna eta bizitasuna eransten zizkioten gutartekoari. Aingeru Epaltza

Lehena zein bigarrena faltsuak dira (lehenago aipatutako **antitesiaren** frogaren arabera alde batetik, eta tesiaren frogaren arabera beste aldetik). Ibon Uribarri

."Gerra zintzoaren" mitoa Estatu Batuak nazifaxismoaren **antitesi** gisa deskribatzen duena ez dute kritikatu nahi izan hedabide eta historialari kontserbadoreek. Berria - Mundua

Argudio-hobi edo topoi horiek bi muturreko **antitesi**-egitura dute, eta historiako garai bakoitzak joera du **antitesi** horren mutur bata edo bestea lehenesteko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Atariko horren egitekoa, berriz, argudio nagusiaren eraginkortasuna ziurtatzea eta indartzea da, dela hari bidea eginez, dela harentzat kontrastean edo **antitesian**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antitesi gisa** (3)

---

antitetaniko *iz* tetanosaren aurkako txertoa.

Neure buruari galdetu nion nire zauriez ez arduratzeko bezain hotza ote zuen bihotza, eta, pentsamendua irakurri izan balit bezala, aurpegia itzuli eta **"antitetanikoa** jarri beharko zenuke" esan zidan. Ramon Saizarbitoria

---

antitetika *iz*

Antitetikak, beraz, ez du jarduten inolaz ere baieztapen aldebakarrez, baizik arrazoimen-ezagutza orokorrak hartzen ditu aintzat, baina beraiek elkarrekin duten aurkakotasunari eta beren kausei dagokienez besterik ez. Ibon Uribarri

Antitetika transzendentala arrazoimen hutsaren antinomiaren azterketa da, bere kausena eta bere emaitzarena. Ibon Uribarri

---

antitetiko *izond* guztiz aurkakoa, guztiz alderantzizkoa.

Komenigarria izango da, berriro, "eragile" eta "erreaktibo", erasotzaile eta erasotuaren paper **antitetikoak** jokatzen dituztenengan izandako ondorioak aparte aztertzea. Iñaki Mendiguren

1924an, sentimendu **antitetikoa**, aurretiko Zibilizazio Helenikoaren gainbehera eta erorikoaren esanahiaren irakurketa desberdinean adierazia, jada areagotzen ari zen Mendebaldeko mundu atsekabetuan. Iñaki Mendiguren

Erraz ikus daitekeenez, debeku hori, egitura **antitetikoa** eta errabinoar itxura tipikoa daukana, ez da era hertsi eta absolutuan ulertu behar. Xabier Kintana

Paradoxak, ideia **antitetikoekin** eginiko jolasak eta oroitzapenez "mozorroturiko" gogoeta eta ipuin laburrak dira nagusi literatura pasaportetzat hartuta noizean behin etxera

itzultzen den idazlearen azken obran. Berria - Kultura

Pertsonaia hauek, hau da, Harrison eta Borges, **antitetikoak** dira. Jon Alonso

Alegoria dute hondakinek beren tropo egokia, ez sinbolismoaren betetasuna; eraikuntza sendoa eta hondakinen zatiak elkarren artean **antitetiko** dira, mitoa eta alegoria diren bezala. Joseba Zulaika

Bi joera psikologiko horiek ikuspuntu subjektibotik **antitetikoak** izan daitezkeen arren, azpilana egiten dute emaitza objektibo berdin-berdina sortzeko. Iñaki Mendiguren

Antitetikoak eta elkarren etsai ote dira espiritu- eta gizarte-balioak? Iñaki Mendiguren

---

antizapatista *izond* zapatismoaren aurkakoa.

Horrela eragotziko da zapatistak ez izateaz gain **antizapatistak** diren pertsona eta kooperatibak beren buruak zapatista gisa aurkeztea. Berria - Mundua

---

antizientifiko *izond* zientziaren edo zientifikoa denaren aurkakoa.

Kulturalki ere (etnologian, soziologian, etab.), kultura guztiei altuera berdina aitortzen zaie: **antizientifikoa** kontsideratzen da kultura aurreratuak eta primitiboak bereiztea. Joxe Azurmendi

---

antizikloi 1 *iz* presio atmosferiko altuko gunea.

Gune horietan, atmosferako aire-masen sistemak, bata bestearen atzetik datoz, aldakor: depresio-gune baten oso ondoan dator **antizikloia**, eta, hau ere, agudo alde egiteko, hartara, beste depresio bati txokoa prestatuz. Pello Zabala

Antizikloia dagoenean, egonkortasuna da nagusi, eta hainbat egunetarako iragarpena egin daiteke. Berria - Harian

Ez da ezohikoa **antizikloi** hori Europa aldera sartzea: orduan, haren babesean, haize kontinentala, gurean frantzi-iparra deitzen dioguna, bidaltzen digula, zerualdeak lehortu eta garbitu ohi dira. Pello Zabala

Gaur ere Britainiako irlaren inguruan jarraituko du **antizikloi** horrek; iparrean dagoen presio altuko gune horren eta Mediterraneoan dagoen presio baxukoaren artean sortutako pasabidetik ipar-ekialdeko haize oso hotza sartuko da gaur ere Euskal Herrira. Berria - Harian

Antizikloiak eta borraskak uneoro mugitzen dira, haizearen presioaren arabera. Berria - Harian

Eguraldi ederreko egunak iragarri zituzten meteorologoek, **antizikloi** bat bertan-goxo geratua zen egun batzuetarako, eta horixe zen atmosferaren egoerarik hoberena izpi berdea ikusi ahal izateko. Iñaki Iñurrieta

Azoreetako **antizikloia** Britainiako irlen inguruan dago, eta horrek iparreko haize oso hotza ekarri du Euskal Herriraino, Siberiatik eta Europatik datorren haize hotza; haize polarra baino lehorragoa eta hotzagoa da. Berria - Harian

Isobara maparen arabera, bazirudik **antizikloi** bat dagoela penintsularen erdian. Joan Mari Irigoien

Gurean eta Europa aldean normaltzat jotzen da **antizikloi** egonkorren bat kokatzea. Pello Zabala

Antizikloi trinko baten seinalea baitzen hori. Pello Zabala

2 *Azoreetako antizikloi*

Azoreetako antizikloiak iparrera egin izana da Siberiako haize hotza Euskal Herrira sartu izanaren erruduna. Berria - Harian

-Beste arrazoi bat izan zen **Azoreetako antizikloi** famatuarena. Pello Zabala

---

antizikloniko *izond* antizikloiarena, antizikloiari dagokiona,

Bihar, egoera **antiziklonikoa** nagusituz joango da. Joseba Sarrionandia

---

antizipatu, antizipa(tu), antizipatzen du *ad* zerbait beste norbaitek baino lehenago edo lasterrago egin.

Bere keinuekin asko **antizipatzen** du, baina Rossini bezalako musika erritmikoan horrek zehaztasun eza ekarri zuen, kontutan hartuta gainera aria birtuosistetan oso garrantzitsua dala dena ondo enkajatua joatea, bestela asko nabaritzen baita. Berria - Kultura

---

antizipazio *iz* zerbait beste norbaitek baino lehenago edo lasterrago egitea.

Elementu hauen konbinazioak, denbora mugagabearekin batera, **antizipazio** ahalmen oro gainditzen dute eta bere emankortasun eskerga esplikatzen, mundu posibleak, kopuruz eta tamainaz ere infinituak izan daitezkeenak. Xabier Amuriza

---

antofilita *iz* amianto mota.

Bi multzo horien artean, egitura eta funtzio ezberdinetako amianto mota ugari dago: **antofilita**, amosita, krozidolita, aktinolita eta tremolita, adibidez; baina munduan zehar gehien hedaturiko amianto mota kristolitoa da. Berria - Ekonomia

---

antoisin *iz* ura hartzeko eta edateko erabiltzen den metalezko ontzi euskarriduna.

Agureak bitartean bere gauza batzuk erakutsi zizkidan: kobre-esmaltezko **antoisin** bat ziapearentzat, zurezko figura nabar bat, [...]. Anton Garikano

Antoisin bat neukan eskura, gauetan ur pixka batekin utzi ohi nuena; hango ura bota nion gainera, eta **antoisina** bera ere botako nion, aurretik bera itzarri ez balitz. hain zuzen ere soilik pazientziarekin itxoin ondoren, eta entzun ondoren emakume zahar musugorri bat zegoela sukaldean **antoisinetik** zopa edaten. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrekin batera **antoisin** handi bete pontxe atera zion ikasleari; hark zurrutada batez irentsi, eta hordi zerraldo erori zen mahaipean. Josu Zabaleta

---

antojagarri *(orobat **antojugarri**) izond adkor* nekagarria, akigarria.

Haurrak askotan galdetzen du zergatik?, egia: espa **antojagarri** bat bihurtzen da azkenerako haurren zergatik? galdetu behar etengabeko hori. Iñaki Segurola

Dena (etorkizun prospektiboa barne) dakien gizajoa autista supiziente bat da; gizon ("gizajoez" ari gara) tristea ez ezik, **antojagarria** eta motza zeharo, ezin deus entzun edo adi baitezake, ez baitu adimenik batere. Iñaki Segurola

Hortxe dago tranpa, eta hargatik dira zahar jakintsu kontseilu-emaileak horren **antojagarriak**, eta maitagarria, aldiz, ez dakitela gozo-gozo aitortzen dakiten atso-agureen zuhurtzia ezjakintsua. Iñaki Segurola

Umetan ez nuen pentsatzen, ondo bainekien ez nituela misterioak ulertuko, arrebak pazientzia **antojugarriz** azaltzen bazizkidan ere. Unai Elorriaga

Umetan ez nuen pentsatzen, ondo bainekien ez nituela misterioak ulertuko, arrebak pazientzia **antojugarriz** azaltzen bazizkidan ere. Unai Elorriaga

Ez nion behakoaren grazia eskaini, **antojugarriak** ziren Tommi haiek guztiak, baina izardun haietarik bati, Williami edo Larryri, begia kendu barik egin nuen berba. Koldo Izagirre

---

antojo ik **antoju**.

---

antoju *(corpusean **antojo** soilik; ETCn **14** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **antoju** agertzen da)* *iz* apeta, guraria; nazka, higuina.

Eta hara non, ez dakit zergatik, promesa hartan letra txarra eta akats ugari uztartuta zetozelako-edo, edo agian papera kedarrez zikindu zelako, **antojua** eragin zidan. ETC-literatura, saiakera

Eta **antojuak** eta jan ondorengo goitikoak zer? ETC-literatura, saiakera

Antojua eta gorrotoa. ETC-literatura, saiakera

Ez da Gobernuaren, Aldundiaren edo EAJren **antoju** bat. ETC-prentsa

Hala, kanpotarrari bitxi suertatuko zaio sokorru in (oihu egin), **antoju** (nazka), paraje (hurbil), sano (oso), aumenta (aipatu)... bezalakoak entzutea. ETC-prentsa

---

antojualdi *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* antoju bolada.

Pentsatuko ez banu, nioen neurekiko, atzekoz aurrera burukadaka, janariz eta edariz beteta **antojualdi** bat eta bestearen artean umeak bezala loak hartzen dituen horiek bezalakoa izango nintzateke. ETC-literatura, saiakera

---

antojugarri ik **antojagarri**.

---

antolabide **1** *iz* zerbait antolatzeko edo egituratzeko modu edo bidea.

Alde batetik, horra agerian nola, organo horren kasuan, gene azpiratzaile bakar baten jarduna nahikoa den osagai guztien **antolabidea** abiarazteko. Juan Garzia

Honelakorik egiten den aldi gutxi horietan, bertso bakoitza, bere diskurtso-izaera galdu gabe, diskurtso-segmentu bilakatzen den (makro) diskurtsoa sorrarazten da **antolabide** horri esker. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

2 *batez ere ipar* konponbidea.

Armak ixilduta baizik ez baita **antolabiderik** asmatzen ahal. Herria

Hasierako Kristau Elizaren eta filosofia helenikoaren arteko gatazka **antolabide** batean bukatu zen: filosofoek kristau-errebelazioaren "egia" onartu zuten, betiere errebelazioak filosofoen hizkeraz janzten bazuen bere burua. Iñaki Mendiguren

Frantzia buru, ainitzek gogor egin dute eta **antolabide** bat atxeman dute aipatuz denek elgarrekin duten ondarea. Herria

Antolabiderik ez bada ezagun, eskolek dei eginen diote auzitegiko adituari, sobera denbora huntan gauzak dilingo daudela. Herria

---

antolaera *(ETCn **448** agerraldi; orobat **antolakera** g.er.)* **1** *iz* antolatzeko era.

Buruhauskarriaren piezek **antolaera** anitz onartuko balute bezala. Iñaki Iñurrieta

Ziur asko, horri dagokion informazioa zelula bakoitzak darama bere baitan eta zelulen jokaera genetikoki programatuak determinatzen du zelulaz gaindiko **antolaera**. Juan Garzia

Itxura guztien arabera, gorputzaren masa handikako **antolaera** zelula taldeen arteko tokian tokiko eragin-trukez gauzatzen da. Juan Garzia

Zeren betieratik hamaika eratara talkaz astinduriko eta pisuz arrastaturiko hamaika lehenki elkartu izan da era guztietara eta probatu izan du elkartzetik sor zezaketen dena, hala nola ez baita harritzekoa oraingo izadiak diharduen eta haiekin berritzen den **antolakerak** eta mugida egokiak ere asmatu izana. Xabier Amuriza

Ez da kidetasunik haien **antolaeren**, haien mekanismoen, haien garabideen artean. Juan Garzia

Begiespena objektuen **antolaerari** egokitu beharko balitzaio, orduan ez dut ikusten nola jakin litekeen zerbait **antolaera** horretaz; objektua (sentsuen objektua den aldetik) gure begiespen-ahalmenaren **antolaerari** egokitzen bazaio, berriz, orduan ederki errepresenta dezaket nik horren ahalgarritasuna. Ibon Uribarri

Zeren koloreak, gustamena, eta abar, gauzen **antolaera** ez, baina gure subjektuaren aldaketa soil gisa kontsideratzen baitira bidezki, hots, gizaki ezberdinetan ere ezberdinak izan daitezkeen aldaketa gisa. Ibon Uribarri

2 (izenondoekin)

Antolaera maiestatetsua miresten dugu, Vinci-ren margolan batean edo Bach-en fuga batean."Garapenaren mekanika" esaten zitzaiona, hots, arrautza bat den bezain gutxi antolaturiko egitura bati animalia batena den bezain **antolaera** konplexu bilakatzea ahalbidetzen dioten indarrak, esperimentazioaren irismenetik kanpo geratzen ziren artean. Juan Garzia

Antropologoarentzat, intzestuaren debekuak eta exogamiak paper nagusi bat jokatzen dute: lotura bat ezartzen dute gizakien artean, halakoa non haren faltan haiek ez bailirateke gai izango **antolaera** biologikoa gainditu eta **antolaera** soziala erdiesteko. Juan Garzia

Nabarmenki begiespenak egoitza gogamenaren **antolaera** formala den subjektuan besterik ez duen heinean soilik. Ibon Uribarri

3 (hitz elkartuetan)

Baldintza hauetan ulertzen da beharrezkoa dela arretaz bereiztea eremu zientifikoak eta esparru arkeologikoak: euren hausturak eta **antolaera**-hastapenak guztiz bestelakoak dira. Xabier Arregi

Saiatzen gara aldatzen ideiak, erakundeak, gizarte **antolaera**, kultura; eta, ondorioz, jendea ere aldatuz joango dela bere burua, espero dugu. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere antolaera** (3); **euren antolaera** (3); **munduaren antolaera** (3); **objektuaren antolaera** (3); **sentimenaren antolaera** (3)

---

antolagaitz *izond* antolatzen zaila.

Gertaera batzuek agerian utziko dute desberdintasuna zertan datzan, eta zergatik den **antolagaitza**. Isabel Arrigain

Ez ote du, azken buruan, izakera bakarzale eta **antolagaitza** zuritzeko mozorrorik egokiena? Patziku Perurena

---

antolakera ik **antolaera**.

---

antolaketa *(ETCn **17.192** agerraldi)* **1** *iz* antolatzea.

Hiru modulazio-mota hauetan desberdina izaten da tetrakordioen **antolaketa**: modulazio harmonikoak bi tonu ditu tetrakordioan, eta bi diesi edo tonu-laurden [...]; tetrakordio kromatikoak bi tonuerdi ditu elkarren jarraian, eta hirugarren bitartean hiru tonuerdi ditu. Santiago Iruretagoiena

Antolaketak agintzen du osagaien hurrenkera, osagai horien arteko erlazioa ahalbideratzen du, konbinaketa batzuk onartzen ditu eta beste batzuk ez ditu onartzen. Iñaki Arranz

Modu ezberdin asko aurkitu ditugu delako **antolaketa** hori agerian uzteko, funtsean bi multzotan sailka ditzakegunak: **antolaketa** nabarmentzea dute helburu lehenek, **antolaketa** iraultzea bigarrenek. Iñaki Arranz

Oso egitura zurruneko enpresen **antolaketak**, non erabat bereizten diren lanaren kontzepzioa eta exekuzioa. Iñaki Heras

Emakumeek lan aipagarria egiten dute ingurumenaren **antolaketan** eta garapenean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ezagutza zientifikoaren **antolaketaren** patroi logikoen azterketa. Askoren artean

Testuaren **antolaketaz** ari garela, irakurketaren ordena izan dugu hizpide aurreko orriotan. Iñaki Arranz

Hona hemen gure sailkapenerako erabili ditugun indar lerro nagusiak: errepikapena, **antolaketa**, eraldaketa, aukeraketa eta metahizkuntza. Iñaki Arranz

Tenpluen **antolaketaz** aritu nintzen, eta tenplu-mota desberdinak aipatu nituen, alegia, zenbat diseinu-estilo dauden eta horietako bakoitzari zein xehetasun dagokion, banaka. Santiago Iruretagoiena

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Emakumea beti erreproduzitzeko fenomenoari lotuta egon baita, eta errealitate horrek izugarri baldintzatu baitu bere lekua **antolaketa** sozialean. Ana Urkiza

Agenda-21 iraunkortasunerako lanabes praktiko bikaina da, **antolaketa** horizontalerako irizpideak aplikatzen ditu, [...]. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Antolaketa konplexua duten egiturak. Askoren artean

Eszenak ere **antolaketa** zehatza du: erdiko ateek Errege-jauregiaren apaingarriak izan behar dituzte, eta horren ezker-eskuineko ateak ostalarientzako ateak izango dira; horien saihetsetan, berriz, dekoratuak egiteko espazioak egongo dira, grekoek *periaktoi* deitzen dituztenak; leku horietan hiru aldetako makina birakariak egoten dira. Santiago Iruretagoiena

Zakurrak, berriz, zaunka egin zuen, gertakizunen **antolaketa** logikoa eten izanak gogaitu egin izan balu bezala. Anjel Lertxundi

Lanaren banaketari buruz, Taylor-en lanaren **antolaketa** zientifikoan oinarrituriko eredua da nagusi. Iñaki Heras

Antolaketa integratua: aurreko antolakuntzetan erraz bereizten ziren funtzio, sail eta hierarkia desberdinen arteko mugak hausteko joera da nagusi. Iñaki Heras

Dagoeneko adierazi dugu Kristau Elizaren **antolaketa** hierarkikoa Erromatar Inperioarenean oinarritu zela. Iñaki Mendiguren

Hizkuntzaren bidezko komunikazioa gerta ahal izateko, **antolaketa** beharrezko eta egonkor bat izan behar da ezinbestez. Isabel Arrigain

Hala, ekonomia-aginte bakoitzak egin behar du, bere ideiak (teoriak) eta interesak (politika) kontuan izanik, helburuen **antolaketa** esplizitua edo inplizitua. Iñaki Heras

Edukiei dagokienez, ahalik eta **antolaketarik** errazena eta, era berean, zorrotzena egiten saiatu gara. Askoren artean

Hemen azaltzen da, besteak beste, unibertsitatearen barneko **antolaketa**; unibertsitatea gobernatzeko erabiltzen diren sistemak, bai hemen eta bai kanpoan ere; unibertsitatearen autonomia, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bi muturren artean, hau da, gutxieneko **antolaketaren** eta gutxieneko arbitrariotasunaren artean, barietate posible guztiak daude sartuak. Isabel Arrigain

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Errefuxiatu jendearen giroan entzundakoaren arabera, kartzela barrutik eraman omen zituzten **antolaketa** eta koordinazio-lan guztiak. Rafa Egiguren

Zabalkundearen arrakasta, zabalkunde hori gertatzen den lekuko eragileek lanaren **antolaketa**-formei eta atzerritar ekoizpen moduak bideraturiko sozializazio-mekanismoei egiten dieten harreraren araberakoa izaten da, alde batetik. Koro Navarro

XX. mendea izan baita giza eskubideen mendea, mende hori izan baita andreen eskubideak lehenbiziko aldiz historian zehar aldarrikatu diren mendea eta ehun urte horietan andrea, etxea utzirik, kanpoan hasi baita lanean, eta lanaren **antolaketa** egitura bera ere aldatu egin du. Pello Salaburu

Nazioarteko zuzeneko inbertsioa jakituria-transferentzia ere bada, alegia, ikaste baten transferentzia; hau da, atzerritar teknologiak eta **antolaketa**-sistemak bereganatzen dituzte tokiko eragileek: [...]. Koro Navarro

Lehenago esan bezala, arazo larriak ditu gaurko **antolaketa** ereduak, eta arazo horiek, campusak behar bezain buruaski ez izatetik datoz. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Administrazio-korporazio sekularrek, hala ere, **antolaketa**-eredu bat emate hutsa baino zerbitzu sakonagoak ere eman zizkieten elizei. Iñaki Mendiguren

Enpresa transnazionalen **antolaketa** modua izugarri aldatu da. Iñaki Heras

Ez beti, noski, baina askotan kudeaketa eta **antolaketa** neurri askok langileak bere lanaren erantzukizuna eta ardura areagotu ditzaten dute benetako helburu. Iñaki Heras

Eragin iraunkor hori, historiak eta kulturak eratzen dituzten loturen sendotasunetik ez ezik, estatuen **antolaketa**- eta arautze-ahalmenetik ere badator. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Monasterioetan, unibertsitateetan, gremioetan eta kofradietan ikasketa-**antolaketak** taldea zuen oinarritzat. Askoren artean

Egia ukaezina da gizaeritasunen maiztasun eta ugaritasuna neurri handiagoan zor zaiola zibilizazioaren eraginari bere gorputz **antolaketaren** ezaugarri bereziei baino. Bernardo Atxaga

Legeek ezin baitute gainditu giza **antolaketaren** sentiberatasunaren mugan dagoen azken indarra. Juan Martin Elexpuru

Atzerriko otomandar erregimenaren pean greziar komunitate kristau ortodoxo menderatua ere neurri batean deserrotua izan zen bere lurraldetik, eta bere gizarte-**antolaketan** eta ekonomi jardueran aldaketak eginez erantzun zuen. Iñaki Mendiguren

Kristau gizarte demokratiko pluralistetan Jainkoaren arrazoia gehienez errespetatu egiten da, hitzez hitz behintzat ez da gizarte **antolaketaren** fundamentutzat hartzen ahal. Joxe Azurmendi

Elizaren lurralde-**antolaketa** hori ez zuen inongo enperadorek sortu; Elizak berak eratu zuen, Eliza ofizialki onartu gabea eta aldika jazarritako erakundea zen garaian. Iñaki Mendiguren

Chaplin-ek *Modern times* film gogoangarrian maisuki kritikatu zuen lan-**antolaketa** mota. Iñaki Heras

Eratu ahal diren gizarte edo ekonomia **antolaketa** guztien artean, egoera okerrenean bizi direnentzat abantaila sozioekonomiko indizerik handiena duena aukeratzen du. Iñaki Heras

Laburbil dezagun garai bateko enpresa **antolaketa** edo ekoizpen eredua, paradigma edo eredu fordistaz ezaguna dena: [...]. Iñaki Heras

5 ***ezagutzaren antolaketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Gure **ezagutzaren antolaketa** ordenatu eta sistematiko batera hel gaitezke, senaz uste duguna datu soiltzat eta oinarrizkotzat hartuz. ETC-literatura, saiakera

Horrek zera iradokitzen du: printzipio multzo batek -ikaste-esperientzia gidatzen duten jaiotzetiko mekanismoek- ahalbidetzen duela objektu-**ezagutzaren antolaketa** eta jabekuntza haurretan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina, esan dugun bezala, **ezagutzaren antolaketa** hori ezin da zabaldu zientziaren esparru guztietara. ETC-literatura, saiakera

6 ***lan antolaketa***

Zuzendaritzak proposatzen duen **lan antolaketa** berria dute partida langilek, horren ondorioa izanen baita Labateko 20 langiletarik lau postu eta erdiren kentzea. Herria

Eredu hori krisian sartu zen zurruntasunerako zeukan joeragatik eta eskariak egonkortasunarekiko zuen mendekotasunarengatik, eta halaber, langileek **lan antolaketa** fordistari gogor egin ziotelako kontra. Iñaki Heras

7 ***lurralde antolaketa***

Lurralde antolaketari dagokionez vegueria-tan eta udaletan banatzen da Katalunia jatorriz vegueria-tan banatzen zen Katalunia. Berria - Harian

Frantziako **Lurralde Antolaketa**, Urbanismo eta Etxebizitza Zuzendaritzako arduradun Jean Paul Fidelik zail ikusten du. Berria - Mundua

CDNk Nekazaritza, eta Etxebizitza, Ingurumena eta **Lurralde Antolaketako** sailak ditu Nafarroako Gobernuan. Berria - Euskal Herria

Kristau Elizaren **lurralde-antolaketa** hori ez zuen inongo enperadorek sortu; Elizak berak eratu zuen, Eliza ofizialki onartu gabea eta aldika jazarritako erakundea zen

garaian. Iñaki Mendiguren

Helburua da Euskal Herriko Hitzarmen bereziak eta **Lurralde antolaketa** eskemak definitu duten hizkuntza politika gauzatzen laguntzea. Herria

8 *lurraldearen antolaketa*

- Harreman sarea: Herrialdeen arteko harreman sarea eraikitzen laguntzea, hizkuntza, kultura, **lurraldearen antolaketa** eta ongizatea bezalako esparruetan udal ordezkarien ekintza bateratuak sustatuz. Berria - Harian

Lurraldearen antolaketaz, proposamen emaile: Zerbitzu eta kontseiluak emateaz gain, EHLG, lekuko biziaren aktore oso bezala, lurraldearen eta ingurumenaren antolaketaz proposamen zehatzen egiten ari da haste-hastetik. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aldundiko lurralde antolaketa** (4); **antolaketa akats** (4); **antolaketa aldetik** (5); **antolaketa arazo** (3); **antolaketa arazoak** (4); **antolaketa bat** (3); **antolaketa berezia** (3); **antolaketa berri** (3); **antolaketa berria** (3); **antolaketa berriak** (4); **antolaketa bikaina** (3); **antolaketa edo** (5); **antolaketa egokia** (5); **antolaketa ere** (7); **antolaketa ereduak** (3); **antolaketa eta etxebizitza** (3); **antolaketa eta kudeaketa** (3); **antolaketa eta sustapenerako** (6); **antolaketa ez** (3); **antolaketa hobetzeko** (4); **antolaketa hori** (4); **antolaketa horren** (3); **antolaketa idazkari jose** (6); **antolaketa idazkaria** (5); **antolaketa idazkariak** (4); **antolaketa lan** (5); **antolaketa lanak** (4); **antolaketa mailan** (3); **antolaketa politiko** (4); **antolaketa politikoa** (5); **antolaketa sistema** (3); **baina antolaketa** (4); **barne antolaketa** (9); **baten antolaketa** (7); **bere antolaketa** (3); **da antolaketa** (6); **duen antolaketa** (4); **dugu antolaketa** (4); **eako antolaketa** (3); **egunaren antolaketa** (3); **elizaren antolaketa** (3); **ere antolaketa** (3); **eremu antolaketa** (4); **eremuen antolaketa** (3); **gizarte antolaketa** (3); **herriko lur antolaketa** (3); **hizkuntza antolaketa** (3); **honen antolaketa** (3); **horren antolaketa** (3); **jokoetako antolaketa batzordeko** (3); **kudeaketa eta antolaketa** (4); **lan antolaketa** (4); **lanaren antolaketa** (5); **lurralde antolaketa eskema** (3); **olinpiar jokoetako antolaketa** (4); **psoeko antolaketa idazkari** (3); **zuen antolaketa** (3)
>
> **herriko kontsumitzaileen antolaketak** (6); **kontsumitzaileen antolaketak eka** (6)
>
> **herriko kontsumitzaileen antolaketako** (4); **kontsumitzaileen antolaketako eka** (3); **lurralde antolaketako** (5)
>
> **antolaketan ere** (4); **antolaketan lan** (3); **antolaketan parte hartu** (5); **honen antolaketan** (3); **horren antolaketan** (4)
>
> **hiri antolaketarako plan** (3); **lurralde antolaketarako** (4)
>
> **lurralde antolaketaren** (4)
>
> **antolaketari buruzko** (9); **lur antolaketari buruz** (9); **lurralde antolaketari dagokionez** (3)
>
> **antolaketaz arduratu** (4); **lur antolaketaz** (3); **lurralde antolaketaz** (3)

---

antolakizun *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi) iz* antolaketa.

Batetik inuitak daude, beren kultura eta **antolakizun** sozial bereziarekin. ETC-prentsa

Petrolio garraio mundu mailakoa segurtatzeko, AEBetako armadak bere **antolakizuna** aldatu du urteotan, buruzagitza barne. ETC-prentsa

Hau da, familiaren jarraipena amatik alabara egiten da, abizenetik hasita familiaren **antolakizun** osoa amaren inguruan izaten da. ETC-prentsa

Klimaren beroketa, **antolakizun** desegokia eta baliabideen kudeaketa txarragatik, herrialderik aberatsenetakoak ere mehatxupean daude. ETC-prentsa

Ondoren negurako **antolakizunetan** sartu da: hostoak janariz hustu eta erreserbak osatu. ETC-prentsa

Mendebaldera gehiago begiratzen dutenak, Errusia hurbilago daukatenak, erlijio nagusia den eliza ortodoxoaren **antolakizun** berezietan ere mamitzen diren ezberdintasunak. ETC-prentsa

Bolivia bezalako herrialde pobre batentzako ausardi handia izan da neurri honetako **antolakizunez** arduratzea. ETC-prentsa

Baina **antolakizun** eskasa salatzeaz gain, Iranek eskatzen du mahometano guztientzat -Saudi Arabia erresuma sunita da, Iran nagusiki xiita...- santutegi sakratuok zaindu ditzala nazioarteko aginte batek. ETC-prentsa

---

antolakunde *(ETCn **2.117** agerraldi) iz* antolaketa, organizazioa.

Antolakunde horietako kide izateagatik lau urtera arteko espetxe zigorra ezartzeko aukera eskaintzen du Espainiako Zigor Kodeak. Berria - Harian

Ahantzezinezko elkarretaratzeak ere, Normaren harrera, adeitasun eta **antolakunde** baliosari esker. Herria

Bergarako Ekimenaren arabera, gatazkaren konponbiderako proposamen integrala eta bitartekaritza nazionala lirateke **"antolakunde** politiko, sindikal eta sozial guztien artean, serioski eta inor baztertu gabe, artikulatu eta garatu beharreko eztabaidaren erreferentziak. Berria - Euskal Herria

Auzitegi Nagusiak kaleratu berri duen autoak dioenez, "ETA **antolakunde** terroristako kide Arkaitz Otazuarentzako gorazarre-ekitaldia egitea zuen helburu" manifestazioak. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriko **antolakunde**, elkarte eta gizarte mugimenduetan parte hartzen hasi ziren. Berria - Euskal Herria

Beste kontu bat da hainbat **antolakunde** politikotako zuzendaritzatan galga jartzen diotela militantziari dinamika hauetan sar ez dadin, baina herriz herriko dinamiketan beren burua ezker abertzalekotzat ez dutenek ere parte hartzen dute. Berria - Harian

KASen barruko erakundeen bilakaerak berak "derrigortutako desegitea" izan zen: LABek eta Jarraik **antolakunde** eredu irekiagoa hartu zuten, "militantzia zabalagoarekin", eta ASK desegin egin zen. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriko **antolakunde**, elkarte eta gizarte mugimenduetan parte hartzen hasi ziren. Berria - Euskal Herria

---

antolakuntza *(ETCn **12.283** agerraldi)* **1** *iz* antolaketa, organizazioa.

Haren inguruan ezker abertzale mugimenduak bukatu du bere **antolakuntza**. Herria

Argi geratu da **antolakuntza** eta borrokaren bidez posible dela independentziaren aldeko bidean urratsak egitea. Berria - Euskal Herria

Beti esan ohi da Elizak oso kontuan izan zituela etniak eta hizkuntzak bere **antolakuntzak** egiterakoan eta, hain zuzen, mendebaleko euskara egiten den eremua agertzen da Kalahorrako Elizbarruti zaharrean. Koldo Zuazo

Halako azterketek **antolakuntza** bat eskatzen dute, hau da, ikerketa sistematikoak -galdeketen bidez eginak, bertako datu-emaileen laguntzaz- eta abar. Isabel Arrigain

Antolakuntza horrek bizidunaren osotasuna nola eratzen den azaldu behar du; zati bakartuen forma eta zeregina ezagutzea ez da, beraz, nahikoa, horien integrazioa behar baita. Askoren artean

Argudioen **antolakuntza** ordena egoki baten arabera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Iparraldean, Gipuzkoan, Araban, Bizkaian eta Nafarroan **antolakuntza** bana sortu da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Marxentzat, gizarteak ondasunen ekoizpena antolatzeko moduak (ekoizpen-baldintzak) determinatzen du gizartearen **antolakuntza** eta bilakaera, alegia, gizartearen bizitzeko modua. Iñaki Heras

Teoria horrek nahiko ikuspegi berezia bultzatzen du Biologiaren Filosofian, eboluzioaren edo informazio genetikoaren ordez **antolakuntza** eta autonomia hartzen baititu biziaren ardaztzat. Askoren artean

Euskal itzulpenaren **antolakuntza** eta kudeaketa: EHUko Euskara Zerbitzua Itzultzailea: Koro Navarro (Rosetta Testu Zerbitzuak) Hizkuntza-begiralea: Xabier Alberdi (EHUko Euskara Zerbitzua) Begirale teknikoa: Iban Zaldua (EHUko irakaslea). Koro Navarro

70eko hamarkadara bitarte, borrokak fabrikaren inguruan gertatu ziren, eta erantzuna errepresio politiko eta sozial handia izan zen, lanaren **antolakuntzaren** egitura-aldaketarekin batera. Berria - Kultura

Ur hodien **antolakuntzaren** beharretan da herria. Herria

Politikariek Estatuaren egituraketan eta autonomien **antolakuntzan** jarri dute arreta eta lehentasuna orain arte. Berria - Harian

Zuzendaritzaren helburu nagusietako bat lan **antolakuntzan** malgutasuna ezartzea da. Berria - Ekonomia

Rafa Larreina EAko **antolakuntzako** idazkariaren ustez, berriz, Ibarretxe manipulazioaren biktima izan zen. Berria - Harian

Inoiz frogatu ezingo duen "sinesmen bat" du Koldo Nabaskues EKA Euskal Herriko Kontsumitzaileen **Antolakuntzako** lehendakariak. Berria - Harian

Antolakuntzako medikuak saiatu ziren suspertzen, baina Labeko ospitalera bidean zendu zen gaztea, helikopteroan. Berria - Kirola

Tourreko **antolakuntzako** Patrice Clerc presidentearen hitzak argigarriak dira: "Iruzurgileen aurka dena da baliagarria". Berria - Kirola

1957an, baina, Bretainiaren **Antolakuntzarako** Mugimendua (MOB) sortu zen. Berria - Mundua

2016ko Olinpiar Jokoen **antolakuntza** jomugan. Berria - Kirola

2 (izenondoekin)

Zuzenbide Zibilaren **antolakuntza** berria. Andres Urrutia

Pentsatua zuten jendeketa hari mintzatuko zitzaizkiola, **antolakuntza** berriaren ekintza bikainak proklamatuz mintzaldi pare bat eginen zutela. Elena Touyarou

Merkataritzatik sortzen diren abenikoetan, legeak kasu gehiago egin behar dio komenientzia publikoari hiritar baten libertateari baino; eta horrek ez ditu kentzen gizatasunak eta **antolakuntza** publiko onak eskatzen dituzten mugatze eta murrizteak. Iñaki Iñurrieta

Midas elkartea zen elgarretaratze horren sustatzalea, Berria egunkariak zuelarik **antolakuntza** konkretua bere gain hartua. Herria

Antolakuntza partehartzaile eta demokratikoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aurrez landuriko osagaien **antolakuntza** parataktikotzat hartu zuen muntaia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Euskal taldeak, ordea, behin baino gehiagotan kexatu dira Kantabrian antolatu diren estropadek **antolakuntza** eskasa izaten dutela esanez ez dituztela Euskadiko Federazioak ezarritako arauak betetzen diote, eta arazoak izaten dira balizekin eta kaleen arteko distantziekin. Berria - Kirola

Bizidunak **antolakuntza** berezi batez horniturik ikusten dituzte, Kant-ek zioen bezala. Askoren artean

Hurrengorako adi, beraz, **antolakuntza** okerrak "astolana" ekartzen baitu. Askoren artean

Leinuen **antolakuntza** zibila. Elizen arteko biblia

Antolakuntza Akademikorako errektoreordea. Berria - Euskal Herria

Egungo **antolakuntza** politiko-administratiboak nazio eraikuntza ez duela bideratu baieztatzea. Berria - Euskal Herria

3 (izenlagunekin)

Era horretan, zientzien osoko **antolakuntzan** zegokion tokia har zezakeen teologia berriak. Askoren artean

Psikiatria-liburu asko irakurriak zituen, gehiago irakurtzeko asmoa zuen, eta oso argi ikusten zituen klinikaren oraingo **antolakuntzaren** akatsak. Jose Morales

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

15 talde horietatik aukeratuko ditu Jazzaldiaren **antolakuntza** batzordeak hamar taldeak. Berria - Kultura

Bestelako iritzia du Angelo Zomegnan Giroko **antolakuntza** buruak: [...]. Berria - Kirola

Antolakuntza koordinatzaile ohi Ana Mato eta Espainiako Ogasun ministro ohi Cristobal Montoro ere hautagai izendatu dituzte. Berria - Euskal Herria

Gizarte Foroko **Antolakuntza** Batzordean parte hartu du, eta bereziki logistikaz arduratu da. Berria - Mundua

Jose Blanco PSOEko **antolakuntza** idazkariak Fernandez de la Vegaren hitzak berretsi zituen. Berria - Harian

PSOEko **Antolakuntza** eta Koordinazio idazkari Jose Blancoren ustez, ETAren aurka "joko bikoitza" ari da erabiltzen PP, Madrilgo gobernuaren aurka egiteko. Berria - Euskal Herria

Gure helburua hau izan zen: Somozaren diktaduraren aurkako lan politikoa egin ahal izateko **antolakuntza** oinarri iraunkorra sortzea. Berria - Mundua

Egitasmo horren inguruan eta gazteen **antolakuntza** ereduaren inguruan eztabaida egin zuten gazte erakundeek. Berria - Harian

Antolakuntza mailan ez zen deusen eskasik, usaiako edarietaz bestalde, matahami beroak preziatuak izan baitira arratsalde erditan. Herria

Haren ustez Hitzarmen Bereziko inbestizamenduak gotorrak dira, Frantzian kasik bakarrak hein horretakoak **antolakuntza** aldetik. Herria

Zer **antolakuntza** mota egin dute Clinton eta Putinek? Herria

Langileekin lan baldintzen malgutasuna ezartzen duen **antolakuntza** plan bat hitzartu omen dute. Berria - Euskal Herria

Lehenengo eta behin, kontuan hartu behar da zelako **antolakuntza** sistema daukagun: garrantzi handia ematen zaio umeen kirol heziketari. Berria - Kirola

Ingurumenari buruzko araudiek, **antolakuntza** -helburuek eta lehentasunek aplikatzen direneko ingurumenaren eta garapenaren egoera islatu behar dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Liberatu batzuk ditugu, baina gu ez gara profesionalak, gure lan orduetatik kanpo aritzen gara **antolakuntza** lanetan, lana ahal dugun ondoena egiten. Berria - Kultura

Bada esan duenik gizonok "genetika aldetik" hobeto prestatuta gaudela aginterako eta **antolakuntza** lanetarako. Luis Elberdin

Pisuko elkarbizitzaren **antolakuntza** arazoez gainera -garbiketa, otorduak, harraskakoak...-, diru eskasia gero eta gorriagoa zen. Iñaki Iñurrieta

Argudioen **antolakuntza** ordena egoki baten arabera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Beste korrelazio batzuek, berriz, esaldia **antolakuntza** mota sintaktiko zuzen bat bezala baliatzen dute, zentzu faltan dagoena. Xabier Arregi

Bera **antolakuntza** arloaz arduratuko zen, eta Hausterri ez zitzaion batere gaizki etorriko hizkuntza lantzea filosofia ere euskaldundu beharko zen noizbait. Iñaki Iñurrieta

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horrek esan nahi du: bere bizi-egitasmoak, ingurukoarekiko bere erlazio-**antolakuntzak** ezinbestean egon beharko dutela esperantza eta beldurraren alderantzizko afektu-bikote hori tartean dutela. Piarres Xarriton

Asteburuen erdiak nirekin eginen zituen Unaik, hain juxtu ere prentsaren barne **antolakuntza** gupidagabeak bere zerbitzari leial nahiz desleialei jai -ez besta- ematen dien horietan. Aingeru Epaltza

Italiako erdi eta iparraldean bereziki, gizarte **antolakuntza** berria ari zen sortzen, mugimendu komunalaren indarrez batez ere. Askoren artean

Brasilgo Konstituzioko 231. artikuluak gizarte **antolakuntza**, ohiturak, hizkuntzak, sinesmenak, usadioa eta lurrak gordetzeko eskubidea onartzen die. Berria - Gaiak

Horrek esan nahi du: bere bizi-egitasmoak, ingurukoarekiko bere erlazio-**antolakuntzak** ezinbestean egon beharko dutela esperantza eta beldurraren alderantzizko afektu-bikote hori tartean dutela. Piarres Xarriton

Patrick Devedjian UMP-koak hauxe erran du mugaz gaineko harreman horien kargua duen "eremu **antolakuntza"** ministerioaz: "ez dut deusetarako ez den ministerio baten kargudun izan nahi". Herria

Enpresa **antolakuntzen** orientazio antropozentrikoagoa. Iñaki Heras

Aristotelesek, Perelmanek eta beste autore batzuek xehe-xehe aztertu dituzte argudio eta argudiabide motak, haien gogo-**antolakuntza** eta haien bideragarritasuna. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

6 ***lurraldearen antolakuntza*** *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi)*

EAJ eta EAk Etxebizitza Saila eskaini dio IUri, **Lurraldearen Antolakuntza** kenduta. ETC-prentsa

Desastre hutsa, **lurraldearen antolakuntza** existitzen ez den seinale, anabasa kaotikoa, txolopote galanta. ETC-prentsa

Zianurorik eta dinamitarik ez erabiltzeko eta **lurraldearen antolakuntzari** buruzko lege bat egiteko eskatzen dugu, gure lurren zertarakoa definitzeko: zein lur den egokia zein jardunetarako. ETC-prentsa

Irakurketa komun batetik **lurraldearen antolakuntzari** buruzko ikuspegi berbera eraikitzean datza kontua. ETC-prentsa

Lurraldea ekonomikoki sustatzea, sozialki kohesionatzea, eta **lurraldearen antolakuntzaren** ikuspuntutik artikulatzea, giza garapen sostengarri baten izenean. ETC-prentsa

Kataluniako **lurraldearen antolakuntzan** udalerria da oinarrizko toki-erakundea, eta tokiko erkidegoek funtsean baliabide horixe dute gai publikoetan parte hartzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ibaiaren arroa, eremu naturala izateaz gain -bioeskualdea, batzuen esanetan, azken boladan-, maiz esparru funtzionala eta kulturala ere bada, eta, horregatik, **lurraldearen antolakuntzarako** kontuan izateko unitate garrantzitsuenetakoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortaz, Erdi Aroko **lurraldearen antolakuntzarako** tresna izan ziren bastidak. ETC-entziklopedia

Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua (frantsesez "Conseil des élus du Pays Basque") Ipar Euskal Herriko erakunde publikoa da, 1995eko otsailean sortu zena **lurraldearen antolakuntza** edo lurralde antolakuntzarekin erlazionatutako proiektuak aurrera eramateko. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

alderdiko antolakuntza (4); **antolakuntza aldetik** (3); **antolakuntza baten** (3); **antolakuntza batzordeak** (5); **antolakuntza berria** (4); **antolakuntza berriaren** (3); **antolakuntza eredu** (3); **antolakuntza eredua** (3); **antolakuntza eskasa** (4); **antolakuntza idazkari jose** (17); **antolakuntza idazkari rafa** (8); **antolakuntza lanetan** (6); **antolakuntza mailan** (3); **blanco psoeko antolakuntza** (19); **blanco psoeren antolakuntza** (5); **da antolakuntza** (4); **du antolakuntza** (3); **du psoeko antolakuntza** (4); **eako antolakuntza idazkari** (12); **eako antolakuntza idazkaria** (4); **eako antolakuntza idazkariak** (4); **eako antolakuntza idazkariaren** (3); **lanaren antolakuntza** (3); **larreina eako antolakuntza** (8); **olinpiar jokoen antolakuntza** (4); **psoeko antolakuntza idazkari** (12); **psoeko antolakuntza idazkaria** (4); **psoeko antolakuntza idazkariak** (20); **psoeren antolakuntza idazkariak** (4); **rafa larreina antolakuntza** (3)

antolakuntzak ez (4); **antolakuntzak kelme taldea** (3); **giroko antolakuntzak** (3); **tourreko antolakuntzak** (5); **vasco kirol antolakuntzak** (3); **zuen antolakuntzak** (3)

tourreko antolakuntzako (3)

antolakuntzan ere (4); **antolakuntzan parte hartuko** (3); **bai antolakuntzan** (4)

gazte antolakuntzaren (3)

antolakuntzari buruz (3)

---

antolaldi *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* *iz* konponketa.

Turista bat izango nintzen han, behin-behineko **antolaldi** bati lotua. ETC-literatura, saiakera

---

antolamendu *(ETCn **11.109** agerraldi; orobat **antolamentu** ETCn **7** agerraldi)* **1** *iz* antolaketa, organizazioa.

Espazioaren **antolamenduak** bazuen halako mairu-kutsu bat. Jon Muñoz

Hamazazpigarren mendean, Galileo eta Newtonen mekanikak edozein arazo konpon zezakeela zirudienean, boladan zegoen palankaz, sokaz, txirrikaz eta hauspoz egindako **antolamendutzat** hartzea gorputza. Irene Aldasoro

Barneko ikasle berri hura ez zegoen klinikari izateko bide onean; gauzen alderdi psikologikoak interesatzen zitzaizkion; Karitateko lekaimeek zer egiten zuten ikertu nahi zuen, bokaziorik zuten ala ez; ospitalearen **antolamendua** zein zen jakiteko grina zuen, eta Diputazioak harentzat izendatuta zeukan dirua nondik joaten zen. Josu Zabaleta

Emakumeen **antolamendurako** gaitasun eza aipatzen da: J.M. Olaizola "Txiliku"

Ertz guztiak ezagutzen ez nizkion **antolamendu** bateko partaide sentitzen nintzen. Anjel Lertxundi

Etengabea da garraioa, perfektua inurrien **antolamendua**. Xabier Montoia

Orduantxe eman behar du Estatuak laguntza bizkor, dela herriak sofri ez dezan, dela errebolta ez dadin: kasu honetan behar dira ospitaleak, edo antzeko **antolamenduren** bat, miseria horri aurre hartuko diona. Iñaki Iñurrieta

Raimundo Silvak bideak ezagutzen ditu, San Vicente aldetik igoko da harresira, handik ikusiko du lursailen **antolamendua**. Jon Alonso

Aita Zaindariak hogeita hamar ziren, eta beren arteko **antolamendua** oso hierarkikoa zen. Jon Alonso

Gaiez, kokalekuz, anekdotaz desberdinak; a posteriori irakurrita, sortzez iturburu beretik sortuak, **antolamenduz** helburu berera bideratuak: etsimenetik etsimena adieraziz etsimena gainditzeko ekimen etengabeak. Josu Zabaleta

Horren zioa gelako **antolamenduaren** zoritxarreko egoera zen: ez jakin zergatik, baina kontua da nire ohepean zegoela argindar-hartunea. Urtzi Urrutikoetxea

Sailkako **antolamenduak**, ordea, ia ezinezkoa egiten du sailen arteko lankidetza iraunkorra. Joxerra Garzia

Aztertuko ditugun prozedurei ondo atxikitzea, taxuzko **antolamendua** moldatzea, euskarak dituen ahalmenei bide ematea. Iñaki Arranz

Lehenengo kasua botere naturaletik sortua da eta Estatuaren sorrera naturala dei diezaiokegu; bigarrena, kideen deliberamendutik eta **antolamendutik** sortua da, eta erakundean du bere sorrera. Esteban Antxustegi

Pasabidea zuten aurrean, eta neurri, **antolamendu** eta sarrera-irteerei zegokienez iparraldekoak bezalakoxeak ziren. Elizen arteko biblia

Bitxia da Onkologiako itxarongelako eserlekuen **antolamendua**. Imanol Zurutuza

Dena dela, Madrilen **antolamendu** eza nabarmendu da. Edorta Jimenez

Antolamendu ezin hobea zen, eta, ezbairik gabe, urte askoan jarraitu izango zukeen baldin eta Smith-ek ez balu bere berrogeigarren urtebetetzea baino hiru gau lehenago tekilaz mozkor-mozkor eginda bere etxeko teilatutik jauzi egin. Oskar Arana

Beldur ematen zion espazio txikien **antolamenduak**, eta ez zuen ametitu nahi izaten ahuldade hura, trebezia falta gogaikarri hura. Patxi Iturritegi

Nahi den gorabehera guztiekin izanik ere, eguna eta urtea aski izan litezke egutegiaren **antolamendurako**. Pello Salaburu

Patioaren **antolamendua** maiz aldatu zuen bere desioen arabera, komunak eta oilategia hiru aldiz aldatu zituen lekuz. Joseba Urteaga

Comisaría de Guerra delakoa Eusko Gudarostea sortu aurretik moldaturiko **antolamendua** izan zen, eta sindikatuen ekimena batez ere, Iñaki Egaña historialariak esplikatu digunez. Koldo Izagirre

Eta Luvinoren ileen **antolamenduak** kaotikoa izaten jarraitzen zuen, eta ile batzuk posizio koherente batean zituen, baina beste gehienak ez. Unai Elorriaga

Gorputzaren usaina, izerdi-usaina, galarazia dago, kirats bat da, kaos ttiki bat, kosmetikaren kosmosak, ordenak eta **antolamenduak** menderatu beharrekoa. Iñaki Segurola

Pasabide zuri eta gangadunetan, ikasgeletan, jantokian, lotokietan, alde guztietan, dena xehero antolatua zegoen, halatan non ematen baitzuen hura zela munduko leku bakarra non bizimodu arruntean **antolamendurik** eta xederik gabe zegoen guztia, han, berriz bere lekuan zegoen. Xabier Olarra

Kanpoalde hori, bestalde, barreneko **antolamenduaz** hautematen dugu eta hor dago arazoaren gakoa. Lourdes Oñederra

Baztertu beharra dago, beraz, Jupiterren izterretik ziplo sortu izana halako sistema, bere **antolamendu** osoarekin. Juan Garzia

2 (izenondoekin)

Andreieven ustez, gizakien arteko urruntasuna eta beren herrialdearen patuarekiko axolagabekeria gizarteko bidegabekerien eta sistema kapitalistaren **antolamendu** zentzugabearen ondorioa ziren. Jose Morales

Alemaniar gudarostea indarrez eta oldarrez ari zen Frantzian sartzen; frantses gudarostea ez zegoen prestatuta hari aurre egiteko: aurreikuspen guztiek huts egin zuten, **antolamendu** eskasa izan zen, frantses gudarostea (buruzagiak) ez zen gauza izan ezta Saint-Exupéryk berak eta bere kideek, arrisku guztiak hartuz, beren hegaldietatik ekartzen zituzten informazioak aztertu eta haietara moldatzeko ere. Josu Zabaleta

Ni ez nauk sistemaren aurka jaiki, nik ez diat neure nortasuna finkatu nahi izan **antolamendu** suntsitzaileari aurre eginez. Koldo Izagirre

Baina berak ez zuen aintzat hartu nire hitzen zentzua, eta ikasketen **antolamendu** berriaren xehetasunekin jarraitu zuen harik eta Lubis eta hiru neskak pabiloitik itzuli ziren arte. Bernardo Atxaga

Hitz batez esateko, **antolamendu** juridikoaren bizkarrezurrik osoenak. Andres Urrutia

Beste koadro historiko batzuek, erakundearen **antolamendu** militarraren zuzendaritzakoak izandakoek, erori gabeko azpiegitura kontrolpean zeukatenek, beste ETA bat osatu zuten (garai hartan ETA V.a esaten geniona) VI. Biltzarrean bildu zen ETAren kontra. Rafa Egiguren

Eta Askatasun lehiari eratxikitzen baldin bazaio Zuzentasunaren eta Elkartasunaren ardura, Nazio Batuen Erakundea ez da gehiago izanen Estatu arteko administrazio **antolamendu** hotz soil bat, baina bai Munduko Nazioen familiarentzat beti zabalik dagoen Etxondo gozoa. Piarres Xarriton

Berak egiten zituen **antolamendu** politikoko planak eta konplikazio teknikorik gabeko lehergaiak modutzeko formulak. Matías Múgica

Kasu honetan ni aurrean jartzea ez da astakortesia, gertakizun literarioko etapen **antolamendu** kronologikoa baino. Anjel Lertxundi

Halabehar hutsa zena, batxilergo osorako kondena bilakatu zuen ikastetxeko **antolamendu** zurrunak, ikasturtez ikasturte nire gibelean jasatera behartu baininduen, gelako ikasmahaien lerroan. Aingeru Epaltza

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orduan, eztabaida amaigabeak izan zituzten hainbat hilabetez: **antolamendu** arazoak, helburu eta baliabide auziak, estrategiari eta etorkizuneko gobernuari buruzko kontuak. Karlos Zabala

French News Service hori **antolamendu**-garaian da; bulego bikainak atontzen ari da Rockefeller Centerren: dena prest egon bezain laster lana erruz izango dugu, esan nizuen-eta onartu egin dutela nik lehenago egindako eskaintza, alegia, baskoak edota espainol hiztunak diren barrutietan geu arduratzea propagandaz. Edorta Jimenez

Hori dela eta, ez bakarrik **antolamendu** arazoak (konpontzeko txikiak izan ez direnak, bide batez), baizik behar horiei erantzuna emateko ahalegin berezia egin behar izan

da, lehentasunak markatuz: irakasle asko kontratatu, eraikin berriak egin, lehendik zeudenak konpondu, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure gizarte **antolamenduak** ere ez dauka halakorik jasateko adorerik. Hasier Etxeberria

Arrotz zaiola hiri **antolamendu** hori. Hasier Etxeberria

Gizarte-**antolamendu** berri bat sortzea da, azken batean, kontua, gizateriari - oraingo eta geroko gizakiei, alegia - ahalik eta modurik duinenean bizirauteko aukera eskainiko diona. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bere ondorioa da, gutxi gorabehera, hizkuntza eta mitologia indoeuroparretan badirela kontzeptu giltzarri batzuk, beren pentsaera eta baita gizarte-**antolamendua** ere erabat baldintzatu eta moldatu dituztenak, eta euskaraz ostera - euskaldunen hizkuntzan eta mitologian - guztiz arrotzak direnak (edo izan direnak, behinik behin). Xabier Mendiguren Elizegi

Komunismoaren jarraitzaileen garaipen militar eta misiolariek Mendebalde modernoko arimak Mendebaldeko gizarte - eta ekonomi **antolamendu** tradizionalak berriro sutsu balioestera bultzatu zituzten bezala, era berean arabiar konkistatzaile musulman primitiboen garaipenek erregai berria eman zieten kristau-"idolatriaren" arazoaren inguruan luzaroan su txikitan egondako eztabaidei. Iñaki Mendiguren

4 ***antolamendu biologiko*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***9*** *agerraldi)*

Antolamendu biologikoa bizitza ikuspegi erredukzionista batetik definitzen duen hierarkia da. ETC-entziklopedia

Platonek edozein errealitatek -berdin dio zaborra, politika edo izaki bizidun baten **antolamendu biologikoa** den- beti bi alde dituela ikusten du. ETC-literatura, saiakera

Horrek gogorarazten digu zein gutxi dakigun kromosometako geneek ereduaren eta formaren itxura, **antolamendu biologikoaren** ezaugarri hain funtsezko bi, kontrolatzen dituzten moduaz. ETC-literatura, saiakera

5 ***antolamendu juridiko***

Bateko ohiturak eta besteko zuzenbide idatzia, bitarikoa zen Frantziako **antolamendu juridikoa** eta beharrena, agi denez, bi egitura horien arteko transakzioa. Andres Urrutia

Estatu horrek, hain zuzen ere, **antolamendu juridiko** eta politiko zehatza zuen, eta egitura osatua, zergak, hizkuntza, eta ikur guztiak barne. Berria - Kultura

Gauzak horrela, gure **antolamendu juridikoan** operatiboa ez den eskubide bat gauzatu ahal izateko ahalegin itzel eta nekezak eskatzen dituzten lege zirrikituetara jo beharko dugu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

6 ***lurralde antolamendu***

Helduden maiatzaren 6 an, ostegun arastirian 7 tan, Sabin Intxaurraga Eusko Jaurlaritzan **Lurralde Antolamendu** eta Inguramen saileko arduraduna mintzatuko da Baionako Elkartetxean (Pannecau karrikan). Herria

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsitakoa eztabaidatu eta bozkatu zuten talde parlamentarioek atzoko osoko bilkuran. Berria - Euskal Herria

Plangintzak Euskal Autonomia Erkidegoko **Lurralde Antolamendu** Batzordearen oniritzia jaso zuen hilaren hasieran. Berria - Harian

Etaiorentzat, **lurralde antolamendua** da giltza: Estatuen arteko koonfederazioa proposatzen zuen». Berria - Kultura

Neurriak kalkulatzeko orain arteko irizpideak doitu ditu, halaber, Industria Sailaren eta **Lurralde Antolamendu** eta Ingurumen Sailaren artean prestatutako planak. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **antolamendu bat** (8); **antolamendu berri bat** (3); **antolamendu eta ingurumen** (28); **antolamendu hori** (6); **antolamendu plana** (3); **den antolamendu** (3); **eaeko lurralde antolamendu** (3); **eszena antolamendu** (3); **gizarte antolamendu berri** (3); **jaurlaritzako lurralde antolamendu** (17); **lurralde antolamendu sailak** (3); **parkearen antolamendu** (3)
>
> **antolamendua oso** (3); **lurralde antolamendua** (8)
>
> **gizarte antolamenduak** (3)
>
> **antolamenduaren aldetik** (3); **eszena antolamenduaren** (3); **lurralde antolamenduaren** (6)
>
> **antolamenduari buruzko** (3); **lurralde antolamenduari** (4)

---

antolamentu ik **antolamendu**.

---

antolarazi, antolaraz(i), antolarazten da/du *ad* antolatzera behartu.

Apriorizko adigai ororen dedukzio transzendentalak, beraz, ondorengo ikerkuntza oro bere arabera **antolarazten** duen printzipio bat du, eta hau da: adigaiak esperientziaren ahalgarritasunaren apriorizko baldintza gisa ezagutu behar direla (esperientzian aurkitzen den begiespenarena edo pentsatzearena). Ibon Uribarri

---

antolatu, antola(tu), antolatzen *(ETCn* ***186.749*** *agerraldi)* **1** da/du *ad* konpondu, atondu; prestatu, adelatu; zerbait nola egin behar den erabaki eta horretarako behar den guztia prestatu; egituraz hornitu, moldatu, egokitu.

Baietzean nago, **antolatu** dudan plana espioitzako filmena baino sofistikatuagoa baita. Karlos Zabala

Hauxe ere iradoki zuen baten batek: Satan-jairen bat **antolatu** zutela. Gotzon Garate

Eskolan ematen nituen orduak lekualdatzea **antolatzeko** erabiltzen zituzten: etxera bueltan beti topatzen nuen beste altzari bat desmuntatua edo saldua. Eduardo Matauko

Txukundadearena konpontzeko beste saio guztiek, txandak **antolatzea** eta abar, porrot egiten zuten. Iñaki Iñurrieta

Partaideek ez zioten gonbitari muzin egin eta lehenbailehen ekin zioten, minutu baten buruan iskanbila alai eta zaratatsua **antolatu** arte. Joanes Urkixo

Gazteak, aldiz, berak **antola** bitez, ahal duten bezala Eneko Bidegain

Ehorzketa, hileta-elizkizunak, meza, eskelak eta lutu-jantziak **antolatzeari** ekin genion. Joseba Urteaga

Argumentua atal txikitan **antolatuta** dago. Pablo Sastre

Hizkuntzatik hizketarako bidearen bilakatze musikala **antolatzen** dute. Lourdes Oñederra

Batek bere oroitzapenak nola-hala idatzi eta besteak txukundu, orraztu, **antolatu**? Xabier Mendiguren Elizegi

Barregarria, halaber, argi eta garbi esatea sistema bat daukazula **antolatuta** kritikak idazteko, ordenadoreko programa automatiko bat, duela bost urte EEBBetan erosia. Javi Cillero

Itsasoan nolabaiteko eragozpenak **antolatu** beharko dira, toki jakin batzuetan inortxok ere arrainik harrapa ez dezan. Edorta Agirre

Lantzean behin, Adbuster fundazioak sona handiko kanpainak **antolatu** ditu Erosketarik gabeko Eguna edota Telebistarik gabeko Astea bezalakoak, besteak beste. Txema Ramirez de la Piscina

Eta hala zabortegiko oinarrizko printzipioak, funtsezko aminoazidoak, **antolatzen** eta kokatzen hasi ziren; eta, egokitze eta eraldatze sakon eta luzeak medio, bilakaera-bideak garatzen. Jose Angel Irigaray

Tira ba, esan bezala, Rakelek horrela **antolatzen** du bere informazio sentimentala, esaldi itxuraz xelebre batzuen inguruan. Patxi Zubizarreta

Pont Neuf kalera orduko, ez zekien nondik nora zebilen; esku orgak gordetzeko orgategi baten erdian agertu zen; zenbait txerpolari beren postu ibiltariak **antolatzen** ari ziren. Karlos Zabala

Aspaldiko garaietan San Frisko-n **antolatzen** ziren afariak oso bestelakoak ziren. Lopez de Arana

Produktore guztiak naziak balira denborarik galdu gabe matxinada bat **antolatuko** zenukete. Fernando Rey

Lizarra-Garaziko su-etena arriskuan zegoela eta Renon kongresu bat **antolatzeko** ideia genuen, egoerari nazioarteko oihartzuna emateko asmoz. Joseba Zulaika

Bat-batean, argazkilari bat azaldu zen, Topaketa **antolatzen** zuen Ttipi-Ttapa-koa, bere kameraren botoiari tira eta saka. Xabier Mendiguren Elizegi

Stanleyk zin egin dit ez duela berriz poker gaurik **antolatuko**, azkena izan dela... eta noski, zuk badakizu zenbat fida naitekeen halako promesez. Xabier Paya

Fanfarre bat **antolatu** ere bai, haize-tresna zalapartari eta kantariekin. Matías Múgica

1938ko apirilean, Himmlerren aginduz, Ahnenerbek isilpeko espedizio bat **antolatu** zuen. Alberto Ladron Arana

Sasirat jotzera behartu zaituzte, harrapatzeko arriskutik ihesean, baina ahal duzun gisa **antolatzen** duzu eguneroko bizitza. Filipe Bidart

Egun-pasa asko **antolatzen** genituen horrela, batera edo bestera. Arantxa Iturbe

Horrek betiko eman zion Salomonen adiskidetasuna, eta bien artean pentsatzen aritu ostean, birigarroen batzar bat **antolatu** zuten. Julen Gabiria

Andreievek labur-labur kontatzen du nola atxilotu eta epaitzen dituzten ministro bat hiltzeko atentatua **antolatzen** ari diren bost gizon-emakume. Jose Morales

Mugikortasun horren ondorioz, era berean, ekoizpena oinarri transnazionalen gainean **antolatzen** hasi da, eta kontsumo-arauen mundializazioa areagotu da. Koro Navarro

Euskal batailoiek, batzuk berrosatuta eta besteak deseginda, Santander alderako ihesa **antolatu** zuten, Castro-Alenen eta Karrantzan, Lanestosan... borroketan jarraitzeko. Jokin Urain

Antolatu egin dezakezu zeure burua eta azken eguna artelan bihurtu. Joxan Elosegi

Baztan bezalako toki euskaldun batean beharturik daude orain "Hamabi ordu euskaraz" bezalako ekitaldiak **antolatzera**, frankismo garaian irratiarekin egin genuen gisa. Pello Salaburu

Udazkenean itzuli egiten zen; kalea elurturik ikusi nahian, etxe haiek barrutik nola ote ziren **antolatuak** igarri nahian. Eskarne Mujika

Galeottik deskuidatuta ere ez zion begiratzen gure amonari, beti itsututa egoten baitzen nire aitarekin, ibilaldiak eta mendi-igoerak **antolatzen**. Fernando Rey

Enbaxadak **antolatutako** dantzaldi batean gertatu zen guztia. Xabier Olarra

Alabaina, badaezpada ere, handik gutxira gezurretako ehizaldi bat **antolatu** zuen eta gauez mozorroturik itzuli zen jauregira. Patxi Zubizarreta

Besteok, bitartean, **antolatuko** diagu orgiaren bat edo -barre karkara egin zuen, eta lagunei begira gelditu zen. Fernando Morillo

Ihesa **antolatzeko** behar dut. Josu Landa

Gure herri mozkor ustel zabar hartan matxinada **antolatuko** zuen buruzagia. Koldo Izagirre

Hurrengo egunean bilera bat **antolatu** zuten herriko zaharrek. Koro Navarro

Egundoko lanak hartu zituela festa **antolatzen**... Anjel Lertxundi

Zentzua lurrari lotuago dutenek espirituak eta Gaizkilea baztertu eta piztiaren ehiza **antolatzen** hasi dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eskolak pintura erakusketa bat **antolatu** zuen; nire koadrorik onenetako batzuk eraman nituen. Juan Kruz Igerabide

1933an, familia, Hitlerren erregimenak juduen kontra **antolatutako** esespenetatik ihesi, Holandara aldatu zen babes bila. Josu Zabaleta

Ez nengoen ni festak **antolatzeko**. Joseba Urteaga

Basamortuko bide luzean, berriz, bere burua herri gisa **antolatzen** hasten da: legeak egiten ditu, kultua arautzen, santutegia eraikitzen, instituzioak sortzen, zereginak banatzen... Jose Antonio Mujika

Extremadurako frontea **antolatzen** ari ziren, hegoaldetik iparrerantz zetozen Franco jeneralaren gudaroste matxinoei aurre egiteko. Jon Maia

ETAko militante bat atxilotu edo hiltzen zutenean, sekulakoak **antolatzen** ziren institutuan eta Parte Zaharrean. Jokin Muñoz

Hilean bi gutun baino ezin duzuela idatzi eta protesta **antolatzen** duzue. Koldo Izagirre

-Taldearen kontrako kanpaina **antolatzen** ez duten bitartean... Xabier Mendiguren Elizegi

-Ongi: zuk ez dakizu ezer, zuk ez duzu inor ezagutzen Magisteritzan, zu ez zaude **antolatua**. Agurtzane Juanena

-Don Carlosek ondoko hilabeteotan gobernu oso bat **antolatzeko** asmoa dik, ministerioak, bankuak eta guzti. Txillardegi

Bidaia bi etapatan **antolatu** nuen. Iñaki Zabaleta

Harry ez beste guztien pozerako, beste irteera bat **antolatu** zuten Hogsmeadera, opor aurreko azken asteburuan. Iñaki Mendiguren

2 (era burutua izenondo gisa)

Badaki, ordea, estatutuetan ildo **antolatuentzat** lekurik ez dagoela, eta «hemendik aurrera hausnarketa» egingo dutela adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Tea edaten zuten denda-oste eroso **antolatuan**. Jon Muñoz

Zeru goi-goian kurrilo saldo **antolatuak** pasatzen ari ziren, Van aintzirara bidean zuzenean. Fernando Rey

Lehen Mundu Gerran beste inon ikusi izan ez diren operazio militar korapilatsu eta zorrozki **antolatuetan** ekinez baino. Edorta Jimenez

Sorkuntzatik finkatuak geratu zein aldian aldiko gertakarien poderioz "aurreratu", batetik besterako etenik gabeko forma sail bat osatzen zuten, nolanahi ere, izaki **antolatuek**. Juan Garzia

Beraz, mintzaira, ikurrek irudikatzen dutenarekiko arbitrariotasunean funtsatzen den sistema bat da; hizkuntza, ikur arbitrario batzuen multzo **antolatua**. Isabel Arrigain

Baina, egia esateko, ni ez naiz inolako erlijioren jarraitzailea, gorroto diet erlijio **antolatuei**, direnak direla. Karlos Zabala

Ehizaldi **antolatuagoak**, zakur ikasiak, zaldi gainean doazen zaldun dotoreak... J.M. Olaizola "Txiliku"

Berehala ikusiko nuen fabrikan, koipe geruzaren azpian, makina kolpeen atzean, langile talde **antolatuak** zeudela, sindikatuak... eta denak klandestinoki aritzen ziren. Jon Maia

Txoriak triangelu moduko sail **antolatuetan** hegazkinak bezala, zeruan triangelu bat marraztuz. Fernando Rey

Ezbairik gabe, azterbide prozedura baliagarri askoren azalpen **antolatuak** eskain daitezke, baina zalantzan jar liteke horiek guztiak funtsezko modu sakon eta nahiko soil batean adieraz ote daitezkeen, aurkitze-prozedura praktiko eta mekaniko bezala onartuak izan daitezen. Itziar Laka

Talde **antolatu** batetik hartu zitean uzta fritzek: gure futbol taldeko kide zituan bahituak! Lauok jokatzen genian hartan, eta nahitaez ezagutzen genian elkar. Josu Zabaleta

Gizarte **antolatuaren** eraikinaren pilareak sartuta dauden lokatzean bizi den aingira. Xabier Olarra

Super-errealismoak arduraz saihesten du kontakizuna eszena **antolatuetan** zatikatzeko konbentzioa; intuizioren bat ernatzen bada, emozioren bat sortzen bada, gertaera hori jaso egiten da, baina besterik gabe, beste edozein gertaera jasotzen den bezala. Koro Navarro

Zentsoreak eta magistratu arbitrarioak beharrezkoak badira gobernuren batean, hori haren konstituzioaren ahultasunagatik izango da, eta ez gobernu ondo **antolatu** baten izaeragatik. Juan Martin Elexpuru

Baina beren kaxkarrean giza esparru **antolatuetan** babesa bilatu duten gizontxook ez dakite deus animalien erresumako legeez, eta berehala ordaintzen dituzte animalien aurkako gehiegikeriak: ez dakizkigunen artean baitira oreinaren mendekuaren nondik norakoa, edo Kanelo txakurtxoarena, edo Gorritxo txekorrarena, edo hontzaren uluaren zentzua. Markos Zapiain

Mendetan ez ziren aldatu, ez harrizko etxeak, ez kale aldapatsu bihurriak -mendiko asto koxkorrak edo gizakiak baizik ez ibiltzeko modukoak-, ez eta herrikoen bizimodu xume eta **antolatua** ere. Xabier Olarra

Lehenengoen indarra datza atzetik azken ehun urteotako dotrina eta pentsamendu ekonomiko **antolatua** izatean. Iñaki Heras

Erromatar eta Arabiar inperioetan biztanleriaren birbanaketa eta nahasketa **antolatuaren** azken onuradunak kristautasuna izan zen kasu batean eta Islama bestean. Iñaki Mendiguren

3 (adizlagunekin)

Egia esan, orkestrarena ez zuen guztiz txarto **antolatu**, eta gizon txikia umore onez zegoen, barkatzeko prest. Harkaitz Cano

Ongi **antolatu** duzu bizimodua. Karlos Linazasoro

Prozesuaren bukaerarako inperioaren administrazio osoa hierarkikoki **antolaturiko** burokraziaren eskuetan zegoen. Iñaki Mendiguren

Berehala **antolatu** dute ordalia. Martin Anso

Nork ukatuko du, Jaungoiko handi hori, guztia ordenaz **antolatzen** duzula? Imanol Unzurrunzaga

Haatik, egitura nolabait **antolatua** dago. Itziar Otegi

Meredithi egin batzuk ezagutzen nituen, baita etxean maiz **antolatzen** zituzten party eta afarietan hainbat laguni egindakoak ere. Xabier Montoia

Edonola ere, beronen ardura nagusia ez zen garbiketaren edo jatorduen kontua ondo **antolatuta** ote zegoen, baizik eta noiz iritsiko ote zen mulata hari bazkalostean astindu batzuk emateko eguna. Jon Arretxe

Liburuaren oharrak gainbegiratu ditut bakarrik, zeren horrelakoetan ez baitzait laket gauza guziak zehazki **antolatzea**. Piarres Aintziart

4 *antola hor!* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Antola hor! Gogora ekarri ezinik bizi dugun ingurumen horretan bertan eskura ditugu ahanzturaren gaitz horri gogor egiteko sendagaiak. ETC-prentsa

5 *antolatutako krimen*

Antolatutako krimena aipatzen du legeak. Berria - Euskal Herria

Ekainean Bruselan egingo den Europako Kontseiluaren bileran "terrorismoaren, droga trafikoaren eta **antolatutako krimenaren** » aurkako laguntza judiziala eta poliziala izango dituzte eztabaidagai EBko kideek. Berria - Mundua

6 *delinkuentzia antolatu*

Del Olmok 69 orrialdeko autoan dioenez, "azken batean, beste errealitate batera eraldatu edo egokitu liteke Egunkaria, eta hor bete-betean sartuko lirakete aurrez aipatutako **delinkuentzia antolatuaren** aurreikuspenak eta errezeloak». Berria - Euskal Herria

7 *krimen antolatu*

Bereziki Armagh konderriko hegoaldean (Irlandako Errepublikarekiko muga aldean) arriskutsuak direla gaineratu zuen, baita "**krimen antolatuan** » dabiltzala ere. Berria - Mundua

Lehen ministroaren hilketa mafiarekin lotua zegoela esan zuen Belgradeko Gobernuak eta **krimen antolatuarekin** ustez harremana zutelakoan hainbat lagun atxilotu zituzten. Berria - Mundua

Juan Fernando Lopez Aguilar Espainiako Justizia ministroak, Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariari erantzunez, atzo esan zuen Herritarren Zerrenda hautagaitza baliogabetu baldin badute " **krimen antolatuari** , indarkeriari eta izuari» lotua dagoelako baliogabetu dutela. Berria - Euskal Herria

8 *kriminalitate antolatu* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

" **Kriminalitate antolatuaren** " inguruko inkestetan -"terrorismoa" barne-, Frantziako Poliziak eta fiskaltzak eskumen gehiago eskuratuko luke, Dominique Perben Frantziako Justizia ministroaren lege proiektua onartzen bada. ETC-prentsa

Argi da **kriminalitate antolatua** eta terrorismoa nazioartekoan hedatuta daudela eta hauen kontra modu eraginkorrez ekiteko herrialdeen arteko elkarlana behar-beharrezkoa dela. ETC-prentsa

Lev Timofeev ekonomilariaren ustez, Errusian bakarrik narkotikoen industriak 8.000-9.000 milioi dolar mugitzen ditu... eta droga ez da **kriminalitate antolatuak** daukan antolakuntza militar-industrialaren adarretako bat baizik. ETC-prentsa

Ustelkeria eta **Kriminalitate Antolatuaren** Aurkako Fiskaltza Berezia. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 13 aldiz agertzen direnak)

antolatu ahal (22); **antolatu behar** (75); **antolatu beharko** (28); **antolatu da** (17); **antolatu den** (22); **antolatu dira** (35); **antolatu diren** (37); **antolatu ditu** (226); **antolatu dituen** (30); **antolatu ditugu** (19); **antolatu dituzte** (209); **antolatu dituzten** (27); **antolatu du** (446); **antolatu duen** (110); **antolatu dugu** (15); **antolatu dute** (346); **antolatu duten** (54); **antolatu genuen** (31); **antolatu izan** (22); **antolatu izana** (19); **antolatu nahi** (71); **antolatu ohi** (21); **antolatu zen** (66); **antolatu ziren** (31); **antolatu zituen** (68); **antolatu zituzten** (51); **antolatu zuela** (14); **antolatu zuen** (240); **antolatu zuten** (154); **arabera antolatu** (16); **astea antolatu** (13); **eguna antolatu** (32); **ekimen antolatu** (13); **ekimenak antolatu** (16); **ekintza antolatu** (15); **ekitaldi antolatu** (46); **ekitaldia antolatu** (33); **elkarretaratzea antolatu** (28); **elkarteak antolatu** (46); **erakusketa antolatu** (27); **hainbat ekitaldi antolatu** (29); **ikastolak antolatu** (14); **inguruan antolatu** (20); **jaialdia antolatu** (29); **jardunaldiak antolatu** (40); **lehiaketa antolatu** (29); **manifestazioa antolatu** (52); **mobilizazioak antolatu** (14); **nola antolatu** (30); **ondo antolatu** (17); **taldeak antolatu** (18); **txapelketa antolatu** (20)

antolatua da (98); **antolatua den** (19); **antolatua izan** (32); **antolatua izanen** (26); **antolatua izanen da** (17); **antolatua zen** (32); **antolatua zuen** (29); **antolatua zuten** (18); **ongi antolatua** (15)

antolatuak dira (26); **antolatuak diren** (14); **antolatuak izan** (13)

antolatuko da (14); **antolatuko dira** (17); **antolatuko ditu** (50); **antolatuko dituzte** (53); **antolatuko du** (71); **antolatuko duen** (14); **antolatuko dugu** (21); **antolatuko dute** (58); **bat antolatuko du** (17); **bat antolatuko dute** (15)

elkarteak antolaturik (94); **elkarteek antolaturik** (14); **ikastolak antolaturik** (24); **taldeak antolaturik** (13)

epelek antolaturiko (23)

---

antolatzaile *(orobat **antolazaile** g.er.)* **1** *izond* antolatzen duena.

Sinesten dut badela unibertsoan azken indar **antolatzaile** betirako bat: ez da pertsona bat, Buddha edo Jesusen gisakoa, baizik eta apika desantolamenduaren aurkako antolaketa bat edo. Xabier Olarra

Esaterako, bestalde, garapenaren eta bilakaeraren adigaiak: hauek uzten digute sakabanatutako gertaera batzuen segida berriro elkarlotzen, hastapen **antolatzaile** bakar eta berberarekin erlazionatzen, bera bizitzaren ahalmen eredugarriaren menpean ipintzen. Xabier Arregi

2 (izen gisa) antolatzen duen pertsona edo taldea.

Antolatzaile edo arduradunek jakin arazten dute, edozoin motako arroperia, zapeta bai eta etxeko oihaleriaren behar gorrian daudela. Herria

Izan ere, nola igaro zitezkeen ezin konta ahala mende zuk egin gabeak, zu baitzara mende guztien egile eta **antolatzaile**? Imanol Unzurrunzaga

Antolatzaile , Hernani-ko Errapia kolektiboa. Herria

Antolatzaile : Jostakin elkarea. Herria

Hatsa mugimendua **antolatzaile** , "gaztegun antimilitarista" asteartean beharra zen Donibane Lohizunen, Akotzeko gaztetxean. Herria

Txurdinagan, Eibarren, Deustun, Iruñan eta beste hainbat herritan hitzaldiren bat eman eta, ilunabarrean (edo iluntze ertsian, sasoiaren arabera) amaitu, kalera irten eta denak, bai entzule, bai **antolatzaile** desagertu ondoren, bakar-bakarrik geratzen nintzenean. Pako Aristi

Auzi konpontzaile ez izateaz gainera, auziak konponbidean sartzeko zirikatzaile, bultzatzaile, bideratzaile eta **antolatzaile** izateko erantzukizuna ere ez zuen bere ardurapean hartu. Koldo Zuazo

Don King izeneko **antolatzaile** batek 5 milioi dolar proposatu zien borroka horren antolatzeko. Ramuntxo Etxeberri

Porto Alegreko Munduko Gizarte Foroko sortzaile eta **antolatzaile** Francisco Whitaker brasildarrak eman zien hasiera hitzaldiei. Berria - Euskal Herria

Erakusketaren **antolatzaile** Antonio Altarribak horren gertu ditugun altxorrak behar bezala ezagutzen ez direla gogoratu zuen, eta helburu nagusia dokumentuen garrantziaren kontzientzia hartzea dela nabarmendu zuen. Berria - Kultura

Manifestazioaren **antolatzaile** Garbiñe Urraren arabera, langileen borrokari babesa eman behar zaio, dagoeneko "borrokan denbora asko daramatelako". Berria - Ekonomia

Ikusgarri horren **antolatzaile** dira Amikuzeko Mediateka eta Elgarri elkartea. Herria

Bagdad kapitalean bozen **antolatzaile** pare bat hil dituzte Haifako karrikan. Herria

Bigarren egunean **antolatzaile** bat etorri zaigu esanez beste talde bat lortu dutela eta nahi badute atseden hartzeko. Pako Aristi

Egia da, baita ere, gai faltarik ez zuela bere lanbide bizitzan, hegazkin pilotu (posta eta gerrako pilotu) ez ezik, hegazkintzarako tresna asmatzaile, hegazkin zerbitzuen **antolatzaile** eta propaganda zerbitzuetako kide ere izan baitzen. Josu Zabaleta

Igandeko saioarentzat eskertu behar da hemen Bertsularien Lagunak elkartea **antolatzaile** bezala, Begiraleak elkartea eta Donibaneko poliklinika laguntzaile bezala. Herria

Donibane Lohizunen, Ravel akademia **antolatzaile** , Udaberriko musikaldiak izanen dira helduden astean eta ondokoan. Herria

Irunberriko Arangoiti ikastola da **antolatzaile** nagusi. Herria

3 (izen gisa izenlagunekin)

Irunberriko Arangoiti ikastola da **antolatzaile** nagusi. Herria

Erresistentziaren **antolatzaile** nagusietako bat izan zen. Fernando Rey

Irailaren 11ko erasoen **antolatzaile** nagusietatik izaitea leporatzen dioten Sheik Khaled Mohamed Guantanamon preso zeukaten. Berria - Harian

Baionako *La Ruee au Jazz* jaialdiak bigarrenez frogatu du **antolatzaile** gazteak Harresietako Jazzaldiaren segida hartzeko gai direla. Berria - Kultura

Euskal kulturak **antolatzaile** onak behar ditu, bertako sorkuntza zabaltzen jakingo duten kudeatzaileak, militantziari profesionaltasuna erantsiko diotenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Prigioni **antolatzaile** txukuna izatetik Europako onenetakoa izatera heldu delako. Berria - Kirola

Antolatze-lanak egun oso bat kendu zidan, zeren eta letra batzuk, esate baterako E, ezkutatuta baitzeuden; baina, azkenean, A **antolatzaile** paregabea nire alde jarri eta alfabeto osoa nire estudioan biltzea lortu nuen. Bernardo Atxaga

1972-73 belaunaldiko jokalariek gazteen ikur nagusia izango dute alboan: Rosicky Borussia Dortmundeko **antolatzaile** fina. Berria - Kirola

Omar Quintero **antolatzaile** mexikarrak ez du aukera gehiegi izan, eta Pablo Prigionik oraindik ez du guztiz sendatu belaunean duen tendinitisa. Berria - Kirola

4 (izen gisa hitz elkartuetan)

Bera dabil, Euskal Herriko beste emakume askorekin batera, plataforma barruan **antolatzaile** lanetan. Berria - Harian

Zeregin horretan, **antolatzaile** lana hartu zuen; hark jarri behar zituen jendeak harremanetan, sekzioak sortu, deia egindakoan Paris estaliko zuen sare zabalaren sare begi bakoitza prestatu. Karlos Zabala

"Txapel bete bertso ekimena sortu zenean konturatu ginen bertsolari gazteen zerrenda luzea genuela, baina bertsozale zerrenda oso bat ere bagenuela, plazan kantatzeko prest ez dagoena, baina saioak jarraitzen dituena, bertsoa beste modu batez jarraitzen duena", agertu digu Onintza Enbeitak, **antolatzaile** taldeko kideetako batek. Berria - Kultura

IA Ikasle Abertzaleak **antolatzaile** taldearen arabera, Ibilaldiaren helburua Euskal Herria ardatz dituen edukiak ikastea izango da. Berria - Euskal Herria

Azken batean, **antolatzaile**-bitartekaria zen gaijartzailea. Andoni Egaña

Helduen euskalduntzean bera izan da erreferentzia-puntu nagusi urte luzeetan, bai metodogile bezala, bai irakasleen trebatzaile gisa, eta baita ikastaro **antolatzaile** gisa ere. Berria - Kultura

Joko-**antolatzaile** bikainak laguntza ona izan zuen taldean: [...]. Berria - Kirola

Urteek, ordea, agerian utzi dute joko **antolatzaile** estatubatuarra izan dela Ivanovicen asmoak ondoen ulertu dituena. Berria - Kirola

Joko **antolatzaile** serbiarrak bi entrenamendu baino ez ditu egin; halere, Salgadori arnas pixka bat emateko aukera izango du. Berria - Kirola

Salamancan nengoelarik, aitaren gaztigua iritsi zitzaidan, Tuterara joateko, berak Italian zehar ibili behar zuelako, Elizako printze baten konpainian, haren musika **antolatzaile** gisa. Felipe Juaristi

Hortan sinesten duten Amikuztar kultur **antolatzaile** batzuk, deliberatu dute zerbait berezirik egitea Donapaleun. Herria

Joko **antolatzaile** postuan du arazo handiena Bizkaiko taldeak. Berria - Kirola

5 ***joko antolatzaile***

Hortaz orain arte itzalean egon arren, Carriere txikiak hartuko du erantzukizuna, Denoueixekin Naoneden azken tituluan funtsezkoa izan zen **joko antolatzailea**. Berria - Kirola

Gehiago esango dizut, intentsitatea bilatzen genuen saioetan, hegaleko batek eta erretiroa harturiko **joko antolatzailea** den delegatuak egin behar izan dute barneko jokalarien lana. Berria - Kirola

6 ***testu antolatzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **92** agerraldi)*

Zenbaki honek, era berean, gai berezi bat jorratu du: **Testu-antolatzaileak**, erabilera estrategikoa. ETC-prentsa

Eduki guztiak banan-banan berrikusi, eta hainbat atal berri eskaintzen ditu: zenbakien erabilera enfatikoa, testu gramatika, **testu antolatzaileak**, adberbio modalizatzaileak... ETC-prentsa

Integrazio-prozesuek esaldiak lotzea mesedetzen dute lokailu eta **testu-antolatzaileen** bitartez, baina baita testuari buruzko inferentziak sortzea eta irakurlearen aurre-ezagutzak aktibatzea ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezagutzen dituzu testu egokiak egiteko euskaraz erabiltzen diren baliabideak (**testu-antolatzaileak**, modalizatzaileak, kohesioestrategiak...)? ETC-zientzia, zuzenbidea

Nabarmendu idazki bateko **testu-antolatzaile** garrantzitsuak, ikasleei irakasteko nola ezagutu eta erabili pentsamolde jakin batzuk adierazten dituen hizkera, hala nola orokortzea eta adibidea, kausa eta efektua, sekuentzia, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erabil daitezke testuak, baina oraindik perpaus-mailako lana egiten jarraitu eta gehienez ere **testu-antolatzaile** batzuen presentzia besterik ez identifikatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta denbora-sekuentziak markatzeko honelako **testu-antolatzaileak** erabiltzen dira: "gero", "beste batean", "hurrengo egunean"... ETC-zientzia, zuzenbidea

Halaber, argudiaketaren marka linguistikoak kokatzeko gai izan behar du, esku hartzen duten lokailuak eta **testu-antolatzaileak** identifikatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Testu-antolagailu edo **testu-antolatzaileak** testu barneko elementuak eta ideiak antolatzen dituzten hitzak edo hitz multzoak dira. ETC-entziklopedia

---

antolatzale ik **antolatzaile**.

---

antolatze *iz* konpontzea, atontzea; prestatzea, adelatzea; zerbait nola egin behar den erabaki eta horretarako behar den guztia prestatzea; egituraz hornitzea, moldatze, egokitzea.

Badute hor 610 milun milaren lana egiteko **antolatze** eta beste, Mariezkurrena etxeak beregain hartu dituenak. Herria

Herriak asmatua du **antolatze** batzuen egitea bide hortan: argia emanez eta oinezko ibilbide bat eginez. Herria

Gertakari berezi bati egokitutako **antolatze** berezia. Berria - Kultura

Kontua da etzanontzat harrigarriak direla Bikilaren igoerak katedral puntara, jaitsierak klandestinitateko paranoiara, muga igarotze arriskutsuak, erakundearen **antolatze** zailak, kartzelaldi eredugarriak, tortura latzak, eztabaida garratzak, azken uneko ihesak. Markos Zapiain

Antolatze eskubidea kriminalizatu. Berria - Euskal Herria

Antolatze-lanak egun oso bat kendu zidan, zeren eta letra batzuk, esate baterako E, ezkutatuta baitzeuden; baina, azkenean, A antolatzaile paregabea nire alde jarri eta alfabeto osoa nire estudioan biltzea lortu nuen. Bernardo Atxaga

Eskola gela berriak osoki eraikiak badira, orain kanpoko **antolatze** obren aldi: josta leku, aterbe, pilota plaza eta murru. Herria

Antolatze eskubidea kriminalizatu **Antolatze**-hastapen hori, hala, ernalkuntzaren aurretik kudeatzen da. Juan Garzia

Mundua bitan banatu da, elkarren artean etsai izan diren bi partetan zatitua, gizartearen **antolatze** sistema bi horiek mahai gainean jarriz. Pello Salaburu

Antza denez, estiloaren itxuratze jardunean (elocutio) hartzen du zuzenean parte epe laburreko oroimenak; epe luzeko oroimenak, aldiz, eragin handiago du ideia eta egituren kudeatze eta **antolatze** jardunetan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertsoaren **antolatze** eta egituratze lan hori osorik burura daiteke kantatzen hasi aurretik, edo zati batean bakarrik (azkenaurreko oina hautaturik soil-soilik), gainerakoa inprobisazio hutsaren menean utziz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Iritsi da garaia estrategia, ideologia eta **antolatze** kontuetan bideak urratzen hasteko. Rafa Egiguren

Eta, hunen baimenik gabe, **antolatze** eta sanotze obrarik ezin egin! Herria

Eskuratu behar diren ahalak: negoziaketan, plangintzan, **antolatze** eta ezagutzaren kudeaketan. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antolatze lanetan (3)

antolatzeke *adlag* antolatu gabe.

Askotan, harrigarri gertatzen zaigu diskurtsoaren kontzeptua gure-ganatua dugunoi, halako jario samurra eta egokia dutenak, estrategia xalo batzuen eskasiarengatik diskurtsoa **antolatzeke** geratu beharra. Andoni Egaña

---

antolazaile ik **antolatzaile**.

---

antolazale ik **antolatzaile**.

---

antologatu, antologa(tu), antologatzen du *ad* antologia batean eman.

Idazlea **antologatu** eta glosatu dute. Berria - Harian

---

antologia **1** *iz* neurtitz edo hitz lauzko zati hautatuen bilduma.

Nork erosten eta irakurtzen ditu **antologiak**? Ana Urkiza

Antologia honetan, salbuespenak aparte, Rimbauden poema ulergarrienak aukeratu ditut. Anjel Lertxundi

Denek batean osatzen dute **antologia** edo lorategi bat, dena elorritsua. Herria

Mahai gainean daukat liburua: Ernesto Cardenalen **antologia** bat da. Pako Aristi

Oskarbi taldearen **antologia** -Hogoi bat urtez, 1966an sortu zenetik 1984a arte, Euskal Herriko xoko moko guziak kurritu zituen Oskarbi taldeak, gaitzeko arrakasta bilduz denetan. Herria

Esku artean duzun Kijoteren **antologia** honen atzean askoren ahalegina dago. Patxi Ezkiaga

Jon Miranderen "Eresi kantari", berriz, Patri Urkizuk paratutako *Jon Mirande orhoituz* **antologian** aurki daiteke. Martin Anso

Zazpi euskal idazlek 90eko hamarkadan idatziriko narrazio laburrak bildu ditu Elkar argitaletxeak 'Ipuin izugarriak' **antologian** . Berria - Kultura

Poetek egiten dituzten poeten **antologiek** balio erantsia izan ohi dute. Anjel Lertxundi

Ez dirudi oso zentzuzkoa litzatekeenik poema hori euskal poesiaren **antologietatik** erauztea. Joxerra Garzia

Geroztik, urtero-urtero argitaratu da aurreko urteko bat-bateko bertsoen **antologia** , eta *Bapatean* sailak 11 liburu ditu dagoeneko argitaratuak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Julio Cortázarrek berak Pedro Salinas idazlearen poesiaren **antologia** bat atondu eta argitara eman zuen. Imanol Zurutuza

Trikitiaren **antologia** egin nahi duenarentzat Joxe Mari Iriondo da iturririk oparoena. Berria - Kultura

Euskaltzaindiaren Bilboko aretoan *Interpretación de los temblores* izeneko **antologia** aurkeztuko du astelehenean Harkaitz Canok, lehenago euskaraz emana duen *Dardaren interpretazioa*-ren gaztelaniazko bertsioa. Berria - Kultura

Teresaren gutuna -buruz ari naiz, ez zait azaldu Stonehamen beste paperen artean- frantseseko klaseetan erabiltzen genuen **antologiako** poema baten lerroarekin hasten zen: Les oiseaux pour mourir se cachent, "txoriak ezkutatu egiten dira hiltzeko". Bernardo Atxaga

Antologia bat prestatu dizuet, "zer dugu Chavezen aurka" izan dezakeena izenburu gisa. Pako Aristi

Ondorioz, erranen dut behin, Martin Azpilkueta Doktor Nafarraren **Antologia** honentzat, zer hautu egin dudan, urratsez urrats: [...]. Piarres Xarriton

Agustin deunaren jardunbidea aurkeztu ondoren, aukeratu ditugun obren **antologia** komentatu nahi dut; nire ustez, Hiponako Agustin filosofo eta teologoaren lanik ezaugarrienak hautatu dira, berauetan azaltzen baitira hark giza eta adimen ahaleginez gehien jorratutako auzi funtsezkoak. Imanol Unzurrunzaga

Galde sailaren hein horretan, txinatar poesia klasikoaren **antologia** bat hartzen zuen, atentatu bat gehiago seinalatuko zion telefono deiaren aiduru. Itxaro Borda

Han, bertsolari zaharren **antologien** eta aitaren filosofia liburuen artean, Zarauzko Historia kontatzen duen bilduma bat dauka. Xabier Etxabe

Argitalpenei dagokienez, Artxiboaren Gidaren kasuan eskubideak lagako dituzte, eta baita lekukotasunen **antologietarako** edo unibertsitate tesi edo ikerketa zientifikoen argitalpenetarako ere. Berria - Harian

Qing garaiko poesia bilduman, Txinan izan den azken dinastiakoan 6.100 poeta agertzen dira, eta uste dute aro horretan 4.000 **antologia** argitaratu zirela. Pako Aristi

Itzulpenek eta **antologiek** haren izena bazterretako hizkuntza gehienetara hedarazten dute. Edorta Jimenez

Krestomatiak, **antologiak** , edizio kritikoak, eskuliburuak, separatak, kantutegiak, poesia klasikoaren edizio elebidunak, villanellen eta cicilianen eta stornelloen eta gisa horretako herri poesiaren bildumak. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Mendebaldearen eta honen egintza guztien abusuen **antologia** monotono eta bukaezina atera daiteke haien idatzietatik. Iñaki Mendiguren

Hainbat anekdota historikoren **antologia** maiztu bat zen. Anjel Lertxundi

Literaturaren historia ere lotura paranoikoen **antologia** erraldoi baten moduan kontsideraturik: horra talaia zilegi bat literatura aztertzeko. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan)

Udazkenean Euskal Herriko Unibertsitateak omen- **antologia** liburu bat argitaratuko du. Berria - Harian

Ez zuen literatura **antologietan** gomendatutako libururik irakurtzen, Unibertsitateko kritikoak salduta zeudelako. *An Anthology of Basque Short Stories* ipuin **antologiaren** 2.000 aleko tirada egin du Renoko Unibertsitateak, eta 1.000 ale promoziorako bideratuko dira. Javi Cillero

Batzuetan hain zen handia gure maitasun-festa non Baudelaireren poesia **antologia** hartu eta La Géante-ren hura irakurtzen nion Gertrudisi. Bernardo Atxaga

Nik neuk prestatu nizun mende honetako poesia **antologiaren** zati handi bat, Complutenseko ikastaroetan hainbeste laudorio jaso zuena. Javi Cillero

Gauza bera al dira poema **antologia** bat, hil osteko testu-zati batzuen bilduma, Traité des coniques lana edo Micheleten Histoire de france-ren liburuki bat? Xabier Arregi

Nire lanen bat eta euskal **antologiaren** bat albanieraz argitaratzeaz hitz egiten dit. Edorta Jimenez

4 irud/hed

Izuaren **antologia** honetatik, honelako gertaeren aurrean erabili beharreko etxe barneko protokoloaren zain, ezin laga ekartzeke bi kontutxo: [...]. Iñigo Aranbarri

Tamalez, kirtenkerien **antologian** sartzea merezi duen erabaki kate baten ondorioz, harmailetatik ikusi beharko du gaurkoa. Berria - Kirola

Euskarazko testuek, ordea, areago dirudite disparatearen **antologia** , baserri giroko emakumeen duintasunaren aldeko kanpaina baino. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antologia argitaratu (3); **antologia aurkeztuko** (3); **antologia bat** (14); **antologia batean** (7); **antologia hau** (3); **antologia honek** (3); **antologia honen** (8); **antologia honetan** (3); **antologia moduko** (3); **bertsoen antologia** (4); **literaturaren antologia** (4); **poemen antologia** (3); **poesia antologia** (5)

---

antologiko *izond* antologiarena, antologiari dagokiona; neurriz kanpokoa dena kalitateari dagokionez.

2005eko ekainaren 18an, irakurtzen genuen Joxemi Zumalaberen (sic) erakusketa **antologikoa** eratzea proposatu duela Donostiako EAJk, heldu den urtean euskaltzale, kulturgile eta artistaren jaiotzaren mendeurrena betetzen dela-eta: [...]. esperientzia pertsonalaz aparte ere, betidanik iruditu omen zitzaion harrigarria artista handienen erakusketa **antologikoetan** gazte denborako lanak, gorputz-enbor eta eskuen zirriborroak eta mundu guztiak egin dituen saio arrunt horiek azaltzea. Iñigo Aranbarri

Saio haren ostean, familiak bi eskari egin zizkion Torresi: Ayalderen obra katalogatzeko eta erakusketa **antologikoa** prestatzeko. Berria - Kultura

Abenduaren 30etik urtarrilaren 22ra egingo dituen saio horietan, zuzeneko disko **antologikoa** eta DVDa grabatuko ditu taldeak. Berria - Kultura

Enekoren jokaldi **antologiko** batek eman zion garaipena Barçari. Joan Mari Irigoien

Oroitu nuen neure lehen gola lehen mailan, baita beste dozena bat ere, gol **antologikoen** zerrendetan sartzeko modukoak, kazetarien esanetan. Joan Mari Irigoien

Egañak entzule hari bertsoaren bigarren puntuan galdera pausatu, entzulearen erantzuna entzun eta segundorik pasatzen utzi gabe bertsoa horren dotore segitu zuenekoa une **antologikoa** izan zen; performance hutsa. Berria - Kultura

Eskolaz ari naizela, ezin nuen inola ere aipatu gabe utzi Koldo Izagirrek idatzitako pieza **antologiko** hau: Berarekin adosturikoa izan zen, berriz, Bertsozale Elkartearen publizitate hura, **antologikoa** inondik ere: "Bertsozale itsua naiz". Joxerra Garzia

Hasierako hiru ahapaldiak, **antologikoak** izateaz gainera, neskaren biografia gomutekin zerikusi estua dute. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erakusketa antologikoa** (8)

---

antologo *iz* Antologia bat prestatzen duen pertsona.

Antologoaren balizko banitatea bildu zuen orrialde honetaraxe lehengo baten Juanra Madariagak, artikulurako gai harturik. Berria - Kultura

Pliuxklin delako bat eskailerako maila batean agertzen da, Errusiako literaturan lukurraren itzala dela argitzen digu Federico Gorbea **antologoak**. Berria - Kultura

---

antonimo *iz* hitz bati buruz, aurkako esangura duen hitza.

Abizen elkartu batzuetan, hitz bat eta bere **antonimoa** aurkitu ahal ditugu: Beheregarai, Garaiabeitia, Beitialarrangoitia, Etxebarriazarraga. Iñaki Arranz

Sinonimoek, **antonimoek**, serieek, alor semantikoek... bidea ematen dute horretarako, ordezkatze prozesu batean. Iñaki Arranz

Hitzen magia liluragarria nork ez du, bada, gozatzen hitz bikote formaren aldetik ia homonimoak eta esanahiaren aldetik **antonimoak** topatzen dituenean? Iñaki Arranz

---

antoninotar *iz* erromatar inperioko dinastia bateko kidea, Nerva enperadorearekin hasi eta Komodorekin bukatu zena.

Gibbonek ez du bere kontaketa behar hainbat atzetik hasten; **antoninotarren** garaia "urrezko aroarekin" nahasten du, benetan "azaroko udalditxoa" bakarrik izan zenean. Iñaki Mendiguren

Estatu unibertsalak bihotz eta buruak liluratzen ditu arazoaldi baten etengabeko porrotean susperraldia gorpuzten duelako, eta azkenean Erromatar Inperioaren alderdi hori miretsi zuten hasieran kontra zeuden greziar letra-gizonek; hauek **antoninotarren** garaian idatzi zuten, askoz geroago Gibbonek garai horri esleitu ziolarik giza arrazak izandako zorion-puntu gorena. Iñaki Mendiguren

Hark ikusi zuen bezala, historia helenikoaren kultur gailurra **antoninotarren** aroan oso garbi bereizten zen hamasei mendeko denbora-tartearen -Gibbonentzat kultur sakonunea zen tartearen- bestaldean. Iñaki Mendiguren

---

antonomasia

1 ***antonomasiaz*** *adlag* delako izena gehien dagokion pertsonari aplikatuz.

Antonomasiaz "el tema de nuestro tiempo" horixe zen Ortegarentzat, liburuari titulua eman diona. Joxe Azurmendi

Auzo zaharra, kalea, euskaraz **antonomasiaz** esaten den bezala, plazan elkartzen diren bi kalexka estu, bihurgunetsu eta aldapatsuk osatzen dute ia osorik. Koro Navarro

Aristoteles-en aipamena, hartaz kristauen Eskolastikan baino izendapen goragoa eginez, horientzat, soilki, "Filosofoa" baitzen, **antonomasiaz**. Xabier Kintana

---

antonomasiko *izond* antonomasiari dagokiona.

" deitzen badiogu berriz, maitasun platoniko hutserako baino ez duela balio iradokiko diogu entzuleari, Romeo izena **antonomasikoa** baita gure kultur kodeetan. Andoni Egaña

Beckett **antonomasikoan**, berriz, Lur-Agertoki zabal, zehaztugabe, ko(s)miko-metafisiko batean dihardute pertsonaia nortasun guztiz prekariokoak, espazio-denbora deuseztatu batean. Juan Garzia

---

antosin ik **antoxin**.

---

antosinkada ik **antoxinkada**.

---

antoxin *(orobat **antosin**) iz* ura hartzeko eta edateko erabiltzen den metalezko ontzi euskarriduna.

Saltoa eman nuen **antoxina** eta koilara esku batean nituela, eta bestearekin eskuagurra egin eta nire burua aurkeztu nuen: [...]. Fernando Rey

Beren **antoxin** handien aurrean eseri ziren, sukaldariak eta gormutuak te beroz beterik utzi baitzizkieten, aldez aurretik lata handi batzuetan teari esnea eta azukrea nahastu eta gero. Irene Aldasoro

Gero eguerdiko atsedenaldia ailegatu zen; berogailuan, **antoxin** urdinean, zopa berotzen jarri nuen, semaforoan bide librearen seinalea jarri nuen zerbitzuko bagoneta motorduna sar zedin. Fernando Rey

Koruak bertatik jarraitu zion, botila hutsetan eta **antoxin** iraulietan, handikiro, orro eginez. Josu Zabaleta

Besteak hantxe zeuden oraindik, ukuiluan mahuka hutsetan jokoan, beren partidetan murgilduta, Pereissondarren **antoxinetik** edana zuten ardo beltz apur hark begiak pizturik. Josu Zabaleta

Ginger Mooneyk bere te- **antoxina** altxatu eta Mariaren osasunari topa egin zion, gainerako emakumeek beren **antoxinez** mahaia joz erantzuten ziotela. Irene Aldasoro

---

antoxinka *adlag* antoxinaren eduki betea erabiliz.

Sutan dagoen oihanean ura **antoxinka** botako balitz bezalaxe sakrifikatzen dira ekipoak. Josu Zabaleta

---

antoxinkada *iz* antoxin betearen edukia.

Oihan mugagabe bat sutan, eta ur **antoxinkada** batzuk sakrifikatzeko, hura dena itzaltzeko: sakrifikatu egingo dira. Josu Zabaleta

---

antozianina *iz* landareen loreei, fruituei, azalari eta sustraiei kolore gorria, urdina edo morea ematen dien pigmentoa.

Antozianinak, zuk noski ondotxo dakizunez, lore gorri eta urdinen pigmentuak dira: erraz oxidatzen eta desoxidatzen diren sustantziak dira, glukosa ere halakoa baita, eta glukosaren oxidazioaren okerbide bat baino ez da diabetesa. Juan Garzia

Lirio lorearen petaloak oso aberatsak dira **antozianinaz**. Juan Garzia

Nire grina gaizto hura guztia neskarik ez izatetik zetorkidan izan banu, hura edukiko nuen gogoan **antozianinen** partez. Juan Garzia

Antozianinekin glukosaren oxidazioa ostera bere galga zuzenera ekartzeko saioa egin zitekeen. landarearen sustraiek, nitrogeno dioxidoa xurgatzean, prozesu biokimiko bat hasten da, zeinak **antozianina** pigmentu naturalaren ekoizpena azkartzen duen. Juan Garzia

---

antozoo *iz* simetria erraldiala duten uretako animaliez mintzatuz, itsasoaren hondoan tinko bizi dena eta polipo forma duena.

Altzionarioak, **antozooen** subklasea da -anemonaren klaseko itsasoko animalia batzuk-. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

antrax *iz* larruazalpean azaltzen den tumorea, hantura mingarria dakarrena.

"antrax" delakoaz baliatu dela. Jose Angel Irigaray

Eulia izurribide izan daiteke eta gaixotasun asko kutsa ditzake -tifusa, disenteria, kolera, **antraxa** eta agian gehiago ere bai- hanketako iletxoetan eraman baititzake gaixotasun horiek sortzen dituzten bakterioak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Igoeren aurkako gerra egiteko moduko armak, gurean egon asko daude: BPGren hazkunde txikia (Espainia iaz %2,4 hazita ere EBko onentsuetakoa), Euroguneko langabezia altu egonkorra (%8,8 eta zorpetze altuarekin), euroa indartzen duen dolar ahula edota AEBetan **antraxa** edo Irailak-11 gogorarazten duen edozer. Berria - Ekonomia

---

antrazita **1** *iz* harrikatz fosil mota distiratsua, bero handia kanporatuz erretzen dena.

Erraustegia **antrazitaz** dabil, eta haizeztagailu elektriko bat dauka hodietako airea xurgatzeko; 50etakoa behar duela irizten dio, Settlers erietxea bera eraiki zutenekoa. Oskar Arana

Antrazitazko bi bola. Jon Muñoz

Gaur inauguratuko dute agintariek juduen genozidioa irudikatzen dituzten **antrazitazko** 2.711 habeez osatutako monumentua. Berria - Harian

Reicharen trenmakina bat zen, **antrazitarekin** funtzionatzen zuena. Fernando Rey

Odol lehortuzko zarakar txiki haiek, **antrazita** zatiak eta garai batean betetzen zituen zangetako lurraren kolorea ekarri zizkioten gogora. Harkaitz Cano

2 irud/hed

-Zitalak! - Maxen **antrazitako** begitxoek suminez distiratzen zuten -. Jon Muñoz

---

antro *iz adkor* itxura txarreko toki edo lokala.

Aurreko batean Cock izeneko **antro** batera eraman gintuzten Hectorrek eta Francisek. Harkaitz Cano

Lerdoak ematen dugu, **antro** honen bazter batean filosofatzen! Pako Aristi

---

antropiko *izond* gizakiari dagokiona.

Susskinden liburuak denen ahora ekarri du printzipio **antropikoa**. Berria - Gaiak

Duela urte batzuk printzipio **antropikoa** aipatzen zutenak sutara bidaltzen zituzten (edo sute figuratiboara, pariah zientifikoa bihurtzeko bidekoa, kosmologo leprosoak diren linbora). Berria - Gaiak

---

antropofagia *iz* gizakien artean giza haragia jateko ohitura.

Euskaldunen ekandu antisentimentalak ahaztuz, **antropofagia** apur batekin besarkatu dugu batak bestea, musua ahoan emanez, mihi bakoitzak beste mihiaren lekua hartu nahirik, lehenago inoiz okerreko ahoan geratu eta mihiek orain zeinek bere lekua errekuperatu nahi balute bezala. Joseba Sarrionandia

"Nazioarteko **antropofagia**" deitu izan diote bi norabideko ibilbide artistiko honi. Berria - Kultura

---

antropofago *izond* gizajalea, giza haragia jaten duena.

Honexek berresten dit ideia hau, Prassum inguruko herriak **antropofagoak** zirela. Iñaki Iñurrieta

Ez nekien zer zen okerragoa: **antropofagoen** jaki gertatzea edo bizirik lurperatua izatea. Patxi Zubizarreta

Ibaiaren erdian geldirik geunden; **antropofagoen** txalupetan eztabaida bizia zegoela nabarmena zen; ez geunden gizajaleen ahotsen oihartzuna ez entzuteko bezain urrun. Jon Alonso

Hasieran ez nuen ezer ikusi; gero, laster ikusi nuen **antropofago** beldurgarrien txalupa batzuek ibai-bidea ixten zigutela. berdin erruduntzat dauzkat metenpsikosiaren egia barneratua izanik animaliak hiltzen eta jaten dituena, beren forma apalagoetan dauden gizakiak baizik ez baitira abereok, nola garaitu duen etsaia jaten duen **antropofago** ankerra". Jon Alonso

Ni ez bainintzen, osaba Joanikotek erran zidan bezala, **antropofagoa**, eta ez bainuen Kristoren gorputza jan nahi, are gutiago haren begiak, orein batenak balira bezala. Joan Mari Irigoien

---

antropofoniko *izond*

Fonema kontzeptua nahi izan zuen baliatu hotsaren egiteko "morfologikoa" hotsaren alderdi **"antropofonikotik"** bereizteko, alegia, hotsak hitzak eratzeko unitate izate hori (morfologikoa) bereizteko hotsen alderdi fisiko eta fisiologikotik (egiteko **"antropofonikoa"**). Lourdes Oñederra

---

antropogenesi *iz* gizakiaren bilakaera eta garapena.

Horrek ez du esan nahi psikoanalisi freudiarra pansexualista denik, ez baitu esaten guztia sexuala denik, baina bai esan nahi du psikoanalisi freudiarraren ikuspegi filogeniakoa (**antropogenesia**) zein ontogeniakoa (norbanakoaren garapena) sexualitatean oinarritzen dela, gizaki ororen gogoa eragiten duen eragile dinamizatzaile

nagusia sexualitatea dela proposatzen baitu. Berria - Harian

---

antropogeniko *(corpusean ez dago; ETCn **211** agerraldi)* **1** *izond* gizakiak sortua.

Zeintzuk dira perturbazio **antropogenikoen** eta teleperturbazioen erregimen garrantzitsuak Lur-Sistemaren mailan? ETC-literatura, saiakera

Haren helburua da berotegi-gasen atmosferako kontzentrazioari maila jakin batean eustea, ez dadin interferentzia **antropogeniko** bat izan sistema klimatikoan. ETC-literatura, saiakera

Hala uste du klima aldaketaren atzean arrazoi **antropogenikoa** dagoela erakutsi zuen zientzialariak. ETC-prentsa

Izan ere, funtsean, arrisku **antropogenikoak** dira, gizakiek sortuak, ez nahitakoak jakinda, kolateralak baizik, progresoa ulertzeko moduaren albo-kalte. ETC-prentsa

Gure ekonomien deskarbonizazioa, funtsezko xedea dena, erreferentzia lauso bilakatu da, isurketen gailurrera "ahalik eta lasterren" heltzeko, eta "negutegi-efektuko gasen isurketa **antropogenikoen** eta iturrien eta hobien arteko oreka" lortzeko premiaren aipamen hutsa. ETC-prentsa

Natur zientzien alderditik ere, organizazio eta ikerketarako institutuen sare internazionalak agerikoak bilakatu dira, esaterako ozono-geruzan zulo **antropogenikoa** eztabaidatzen dutenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kimiolitotrofoek hainbat iturritako elektroi-emaile ez-organikoak erabil ditzakete, iturri geologiko, biologiko nahiz **antropogenikoetako** konposatuak, alegia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Paisaia hau Baserriak eta mendeetan aurrera eramandako nekazal eta batez ere abeltzain ustiapenak eraikitako ekosistema **antropogenikoa** da, ala baina fauna aldetik aberatsa eta oso interesgarria da eta garapen iraunkorraren adibide bizia dela esan dezakegu beraz. ETC-entziklopedia

Baso **antropogenikoak** : gizakiek eragindakoak edo sortutakoak, basoaren patroietan eraldaketa handiak eragiteko moduko maiztasun edo intentsitatearekin. Maiz, baso mota horietan espezie exotikoak daude. ETC-entziklopedia

Arnasten dugun CO-aren iturri **antropogenikorik** garrantzitsuenetarikoa gasolina autoen ihes-tutuetatik irteten dena da, gasolio diesel autoek funtzionamendu egokia dutenean isurtzen duten kantitatea minimoa baita aurrekoarenarekin alderatuz. ETC-entziklopedia

2 *berotze antropogeniko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Klimaren **berotze antropogenikoa** , gizakiak eragindakoa, oso hedatuta dago, eta argi ikus daiteke lur gaineko tenperaturetan, atmosferan, eta ozeanoetan", dio txostenak The Independent-en arabera. ETC-prentsa

---

antropoide *iz/izond* abereez mintzatuz, gizakien itxura duena.

Bizarra moztuko didate hildakoan, frogatu gura izango dute dotorezia susmagarri honen azpian **antropoide** baten matelezurra ezkutatzen dudala. Koldo Izagirre

Liburu honek frogatzen du, duela 2 milioi urte afrikar **antropoideak** ginela denak, eta duela 300 milioi urte anfibioak ginela denak, ahate bustien moduan irteten ginelarik urtetatik lehor ezezagunera. Joseba Sarrionandia

Pentsa genezake, bere **antropoideak** hagineko mina bazuen, filosofo mandarinaren izpirituak arazorik ez zuela izango, mina adarrak zeukala-eta, dentistarengana laster abiatzeko. Joxe Azurmendi

Gizateria, iz. Giza arraza, osorik hartuta, poeta **antropoideak** bazterturik. Xabier Olarra

Piorentzat "vacunoa" da 1917ko amerikarren aberetasuna, baina, zerri **antropoidea** zen batik bat amerikarra joan den mende bukaeran guretzat. Patziku Perurena

---

antropologia **1** *iz* gizakia bere alderdi biologiko, fisiko eta sozialetan aztertzen duen zientzia.

Zer da **antropologia** : mundu ikuskera bat edo mundua aztertzeko metodologia bat? Ana Urkiza

Zuzenbidea, **antropologia** eta hizkuntzalaritza ikasi ondoren sartu zen politikaren munduan. Berria - Harian

Dewey), soziologia, **antropologia** , balioen zerikusiaz gizartean modu filosofiko pragmatikoan ibili dira arduraturik. Joxe Azurmendi

Arkeologia, **antropologia** , hizkuntzalaritza izan dira euskal kulturaren zientzia fundazionalak. Joseba Zulaika

Antropologiak gizakia zer den argitzeko zientzia edo diziplina izan gura du oro har. Askoren artean

Horra bada, **antropologiaren** arreta merezi duen ikerketa-bide bat: baserri giroko auzo-liskarretan, metari meta, munta gutxiko lapurretek sortu ohi dituzten elkar hiltzerainoko sestrak. Anjel Lertxundi

Hizkuntza eta kultura amankomuna dugu, **antropologiako** ezaugarri amankomun bat baino gehiago ditugu. Berria - Kultura

Artazuriketa gertakari kultural gisa aztertzeko lana hautatu genuenean, **antropologiako** irakasleak "datuen razzia" deitzen zuen lanaren lehendabiziko faseari ekin genion. Anjel Lertxundi

Hizkuntzalaritza, arreta handiz bereizi behar da etnografiatik eta historiaurrekotik, horietan hizkuntzak dokumentu moduan soilik hartzen baitu parte; **antropologiatik** ere urrundu behar du, zeren **antropologiak** espeziearen ikuspegitik soilik aztertzen baitu gizakia, eta mintzaira, gizarte gertakari bat da. Isabel Arrigain

Irudiaren ikusleaz dauden ikuspegi nagusien gainbegiratu labur honek erakusten duena, irudi negatiboan bada ere, irudien **antropologia** bat da zinez: irudiaren eta irudiak gizonarekin oro har duen erlazioaren azterketa. Josu Zabaleta

Gainera oinarrietaraino iganez, helduko gara bi giza mota osoki ezberdin -"agintzeko eginak diren gizakiak" eta "obeditzeko eginak diren gizakiak"- bereizten dituen **antropologiaren** ikuspegi zahar bezain okerrera. Piarres Xarriton

Antropologiaren bideetan sartuta, dokumentalistaren lana bete du egileak, erromantizismoa gogora ekartzen duen estetikari muzin egin gabe. Berria - Kultura

2 (izenondoekin)

Ahanzturarik gabeko barkamenarekin beren heriotza duintzeko; heriotzaren **antropologia** estetiko berria eraikitzeko. Berria - Kultura

Antropologia filosofiko batez oraindik ezin mintza gintezke: gizakia esentzialki arrazoimenarekin definituz, eta arrazoimena ez-historiko gisa ulertuz funtsean, **antropologiarik** ez da posible. Askoren artean

Sarrera honetan, garai bakoitzeko gairik garrantzitsuenak jorratuz, **Antropologia** Filosofikoaren bilakaera historikoa aurkezten da. Askoren artean

Batzuen ustez (M. Scheler, B. Groethuysen, Brüning, Landmann), **antropologia** filosofikoa betidanik egon da: leizeetako artean ere gizakiak bere buruaren kontzeptua eta gogoeta islatu zituzkeen modu plastikoan. Askoren artean

Hemen, **antropologia** konparatuari dagokion arazo bat dago: aldatzen al da, bada, ahoskatze aparatoa arrazarik arraza? Isabel Arrigain

EHUko Genetika, **Antropologia** Fisikoa eta Animalia Fisiologia Saileko zuzendaria da, eta EHUko Gizarte Kontseiluko kidea eta Unibertsitate Koordinaziorako Kontseilukoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Antropologia kulturalak gizakiaren definizio unibertsalaren aldeko preferentzia errotik eztabaidatu izan du. Joseba Zulaika

Modu akademikoan jaio eta loratuz, **antropologia** kulturala moderno bilakatu da, Europako zibilizatuen zientzia gisa, basakerian geraturiko edo "historia gabeko" herriei buruz; goitik behera begira, arkeologia kultural baten antzera. Askoren artean

Ortega-k, tradizio filosofikotik jasoa duen Volksgeistaren kontzeptua, arrazarena bihurtu du, garai hartan indar handian zegoen **antropologia** arrazialistara moldatuz. Joxe Azurmendi

Gaia, **"Antropologia** sozio-kulturalak zer ekar dezaken gaurko Euskal Herriaren ezagutzan". Herria

(Marseillako Unibertsitatearentzat egin **antropologia** biologiko ikerketa baten emaitzak. Herria

Positibistek eta materialistek bilakabide historikoaren interpretazioa **antropologia** biologista hutsarekin egin nahi dute (historiaren filosofiarik gabe). Joxe Azurmendi

Antropologia naturalista edo biosoziala, biopsikikoa, kulturala edo soziala (etnologikoa), pedagogikoa, politologikoa (edo politikoa), ekonomikoa, teologikoa (edo erlijioosoa), filosofikoa edo, baita ere, estrukturala, hermeneutikoa, etab. Askoren artean

Biologiak, soziologiak, **antropologia** espiritualistak "hausten" duten gizakia bere batasunean, osotasunean bilatzen. idealismo horren oihartzuna oraindik entzuten da, hala etnografia postmodernoan nola **antropologia** hermeneutikoagoan. Askoren artean

Ez dago **antropologia** unibertsal hutsik, ezta partikularistarik ere. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

1995ean, EHUn **Antropologia** ikasketak sortu zituztenean, bere eskola guztiak euskarazkoak ziren, baita doktoradutza eskolak ere. Berria - Kultura

Ikuspegi kritikoaren muturrera jota, aipagarria da Sharryn Kasmir **antropologia** irakasle estatubatuarraren ikuspegia. Iñaki Heras

Espainiako Hezkuntza Ministerioaren Marques de Lozoya **antropologia** saria irabazi berri du. Berria - Euskal Herria

Hofrat Klementi -Antzinako Ekialdeko Bilduma Bereziaren Zuzendari, Artearen Historiako Museoan, eta baita Etnografia eta **Antropologia** Saileko behin-behineko buru ere-, ez dago aurkeztu beharrik. Anton Garikano

Hark sortua zela Madrileko **Antropologia** Museoa ere, eta berriro és del tot fiable, és del tot fiable esanez amaitu zuen liburu-saltzaileak bere jarduna. Anjel Lertxundi

Tximino gisako zerbait, bai, **antropologia** -lanetako irudietan agertzen direnen antzekoa! Xabier Paya

Enteratu naiz Andoni Ekuador aldean bizi dela, Andeen magaleko ibar galduren batean, **antropologia** lanean eta neska kitxua batekin ezkonduta, baina paper faltsuekin, gu bezala. Joseba Sarrionandia

Antropologia -tratatu ugari bada medikuentzat. Askoren artean

Lehen mailako erreferentzia horren ondoan, gogoan har bedi Marcel Joussere eskolako **antropologia** -tradizio frantsesak omen handia eduki duela halaber gure artean, maisu handiaren ikasle Ives Beaupérinen ekarrien bidez bereziki. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Filosofia horrek hausnartu nahi duen munduak pertsonen nahi eta behar sakonak jasotzen ditu eta hortik datorkio erlijioarekiko lotura, hortik sortzen diren **antropologia** -mailako gogoetarekin. Askoren artean

Gizonemakumeak hainbat ikuspegitatik eta hainbat modutan iker daitezkeenez, gaur **antropologia** -mota askotarikoak aurki daitezke bereizita, aukeren arabera. Askoren artean

Maris Boyd Gillette Haverford **Antropologia** Goi Eskolako irakaslea da Pennsylvanian Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskal **antropologia** gai nagusitzat hartu, eta makina bat galdera egin zizkioten. Berria - Kultura

Horiez gain, genero **antropologiako** lanak egiten ditu Farapi aholkularitza gunean. Berria - Euskal Herria

Mercedes Salado, forentsea da, Guatemalako Auzi-**Antropologia** Fundazioko kidea. Roberto Romei italiarrak antzerki biomekanikako ikastaro bat eskainiko du, eta Lluis Masgrau kataluniarrak antzerki **antropologiako** mintegia zuzenduko du. Berria - Euskal Herria

Diru mordoa xahutu nuen zulo horretan, baina ez zitzaidan axola, olgeta-**antropologia** praktikatzeko aukera ezin hobea eskaintzen baitzidan. Iban Zaldua

Gaurko kultur aniztasunaren konparazio-**antropologiaren** ahaleginek ius gentiumarekin antz handia dute. Askoren artean

5 ***antropologia biologiko***

Euskaldunak: gaurko datu genetikoak eta hematologia arloko aplikazioak" (Marseillako Unibertsitatearentzat egin **antropologia biologiko** ikerketa baten emaitzak). Herria

Idazlan horretan, Europako errealitate kultural eta politikoa aztertu du, **antropologia biologiko** eta sozialaren ikuspuntua abiapuntutzat hartuz. Berria - Kultura

6 ***antropologia feminista***

Zehatzagoak izate aldera, **antropologia feminista**n edo genero antropologian kokatu behar genuke. Berria - Euskal Herria

7 ***antropologia fisiko***

Antropologia Fisikoko praktiketako irakaslea izan nintzen Complutensean eta gero Donostiako eta Bilboko seminarioetan. Berria - Euskal Herria

Egun, EHUko Genetika, **Antropologia Fisikoa** eta Animalia Fisiologia Saileko zuzendaria da, eta EHUko Gizarte Kontseiluko kidea eta Unibertsitate Koordinaziorako Kontseilukoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

8 ***antropologia kultural***

Antropologia kulturalak gizakiaren definizio unibertsalaren aldeko preferentzia errotik eztabaidatu izan du. Joseba Zulaika

Modu akademikoan jaio eta loratuz, **antropologia kulturala** moderno bilakatu da, Europako zibilizatuen zientzia gisa, basakerian geraturiko edo "historia gabeko" herriei buruz. Askoren artean

9 ***antropologia linguistiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Antropologia linguistikoa antropologiaren diziplina bat da. Gizarteetan hitz egiten diren hizkuntzak aztertzen ditu, baita gizarte horietako oinarrizko ezaugarri kulturaletako erabilpen linguistikoak eta lexikoak nola elkar lotzen diren. ETC-entziklopedia

Jendartearen, sexu-genero sistemaren eta hizkuntzaren arteko harremana soziolinguistikak eta **antropologia linguistikoak** aspalditik ikertu dute, eta baita teoria eta ikasketa feministek ere. ETC-literatura, saiakera

Aurrerantzean, eta hari honi jarraituz, norabide linguistikoa ematen die gizakiari buruzko bere ikerketa guztiei eta, egiaz, "**antropologia linguistikoa** " den "hizkuntz-teoria" bat jorratzen saiatzen da. ETC-literatura, saiakera

XX. mendearen hasieran, aldiz, erlatibismo linguistikoaren bi aitzindarik garaiko **antropologia linguistikoaren** oinarri bateragarri absolutista hura hankaz gora jarri zuten. ETC-prentsa

Bi terminoak, **'antropologia linguistikoa'** eta 'linguistika antropologikoa', modu nahiko trukagarrian erabili dira iraganean, eta, zinez, bertan ezberdintasun semantikoak eta praktikoak bilatzeko ahalegin oro historia berrirakurtzeko arriskuan eror daiteke. ETC-literatura, saiakera

10 ***antropologia sozial*** *(corpusean ez dago; ETCn **65** agerraldi)*

Lévi-Straussek Rousseau proposatu zuen **antropologia sozialaren** benetako sortzaile gisa, zalantza izpirik gabe. ETC-literatura, saiakera

Antzekoa dio **antropologia sozial** britainiarraren ordezkari ospetsuenetakoa den Malinowski poloniarrak ere. ETC-literatura, saiakera

Britainia Handia sorburu izandakoari **antropologia soziala** deitu izan zaio, bistan da, azterketarako garaian kontzeptu gakoa gizartea izan duelako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Guztiz aurkakoak ziren bi ikuspunturen adierazle zen borroka hau: **antropologia soziala** (Franz Boas) eta fisikoa (Grant). ETC-entziklopedia

Antropologia sozialak , soziobiologiak eta soziologiak erabiltzen duten termino honek, zoologian, ar batek eme askorekin edo eme batek ar askorekin kopulatzen duten animalien izaera da. ETC-entziklopedia

Antropologia sozialaren berezitasuna da ikerketarako bere metodoa, etnografia, eskatzen baitu ikerleak denbora asko iragatea arakatzen duen eremuan, jendeekin, haiekin komunikatuz, haien bizipenak ezagutuz, eta haien esperientzien argitan daramaten bizitza ulertzen saiatuz. ETC-prentsa

Antropologoa naiz eta **antropologia sozialean** doktoratu nintzen. ETC-prentsa

Haren arabera, thick description-a zen **antropologia sozialaren** helburu, hau da, komunitate baten deskribapen trinkoa egitea. ETC-prentsa

Euskal kulturan emakumeek eta gizonek duten tokiaz mintzatu da Mari Luz Esteban **antropologia sozialean** doktorea Bertsozale elkarteak Villabonan antolatutako Umorez jardunaldietan. ETC-prentsa

1955. urteko lan hura, zalantzarik gabe, eta testuinguruan jartzen, aurreko mendean **antropologia sozial** eta kulturalaren alorrean egindako lan zorrotzena da. ETC-prentsa

Antropologia Soziala diziplina gisa ezartzeko eta finkatzeko lana aitortu diote, baita antropologia feministaren arloan eta metodologian sakondu izana ere. ETC-prentsa

Zerk bultzatu zintuen horretara: estetikak, **antropologia sozialak** ...?. ETC-prentsa

Antropologia sozial ikasketak egina da, Salhaketan hamabi urtez lan egindakoa, bertan laguntzen segitzen du erretretan sarturik ere. ETC-prentsa

Antropologia sozialerako ikerketa bat egiten ari nintzen: euskarak zer esan nahi zuen Madrilgo euskal etxean ikasten ari zirenentzat. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antropologia euskaraz (3); **antropologia filosofiko** (4); **antropologia filosofikoa** (11); **antropologia filosofikoaren** (7); **antropologia irakaslea** (3); **antropologia saileko** (3); **antzerki antropologia** (6); **da antropologia** (4); **unibertsitateko antropologia** (3)

antropologiko 1 *izond* antropologiarena, antropologiari dagokiona.

Odolkidetasuna ere bazegoela hizkuntza ahaide horiek hitz egiten zituzten herrien artean, hau da, hizkuntza familia bat familia **antropologiko** bati dagokiola, zeren errealitatea ez da hain erraza. Isabel Arrigain

Germaniar arrazak, esaterako, ezaugarri **antropologiko** garbiak ditu: ile horaila, burezur luzea, garaiak izatea eta abar. Isabel Arrigain

Euskal hegemonia ezin da oinarritu izate fundazional baten inguruan (euskaldunok eskubide bereziak ditugu hemen jaioak garelako, edo euskara defenditu behar dugulako, edo izaera **antropologiko** apartekoa dugulako), baizik eta euskal gizarte progresibo baten zerbitzurako aukeratutako "korapilo puntu" edo botere kontzentrazio partzial batzuen inguruko formazioetan. Joseba Zulaika

Kontserbazioaren diskurtsoak leku egin beharko lioke praktiken estrategia sozio-ekonomikoaren parez-pare doan dimentsio **antropologiko** funtsezkoari. Berria - Gaiak

Basterretxeak, berriz, bere obraren oinarri **antropologikoak** nabarmendu zituen. Berria - Kultura

Zoologikoetara eta beste hainbat eratako naturgunetara egin zituen bisitaldietan ikuspegi **antropologikotik** grabatu zituen animaliak, kalitate bikaineko filmaketetan. Berria - Kultura

Ordu arte saiatutako filosofiaren eta teologiaren arteko lotura sistematikoaren ordez, kutsu **antropologikoa** zuen beste lotura egokiago bat saiatzeko aukera zegoen. Askoren artean

Iker daiteke zein testuinguru historiko eta sozialetan sortua den agindu hori Israelgo herriaren bizitzan; zein sentido **antropologiko** eta erlijioso zuen basamortuko artzaintza zeken, arriskuz betean, zein betekizun sozial betetzen, beraz zein balio politiko-sozial zuen, etab., etab. Joxe Azurmendi

Burezurrak British Museumak erosten zituen, hiru libra esterlina ordaintzen zen burezur bakoitzeko, neurketa **antropologikoak** egiteko. Joseba Sarrionandia

Ikerketa **antropologikoek** (Nafarroko Bozaten, baita Biarnoan) garbi utzi dute agoteen ondokoek ez dutela deus berezirik beste herritarrekin konparatuz. Herria

Azterketa **antropologiko** bat balio demokratikoen defentsa aski bipila ez egiteagatik kondenatzen da. Joxe Azurmendi

Ia bidaiari kronika soil batean, Euskal Herriaren analisi hirukoitza marrazten digu: historiko-politikoa, karlistaldiaren inguruan; **antropologikoa**, euskaldunen izaeraz, hizkuntzaz, etab.; eta soziala, hemen ikusten dituen jende tipoak, ikuspegi psikologiko batez eta jende mota bakoitzaren mundu psikologiko pertsonal hori azpimarratuz. Koldo Izagirre

Garai bateko altxor guztiak historia honen hiri zaharrean pilatu dira; sendoa zela uste izan da; sakralizatu izan da; pentsamendu **antropologikoaren** azken kokalekutzat jo izan da. Xabier Arregi

Hobbesen pesimismo **antropologikoaren** atzetik, herritartasunaren teoriari egindako ekarpen positiboa ezkutatzen da. Esteban Antxustegi

Noizbait "baikor **antropologikoa**" dela esana du, baina baikortasun edo ezkortasun kontua ez dela zehaztu zuen atzo: erabat sinetsita dagoela indarkeriak "denbora mugatua" duela, eta hori esateko "gertaera objektiboetan" oinarritzen dela, Gobernuak duen informazioan. Berria - Euskal Herria

Altxor **antropologikoa** 16 milimetrotan. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Hori egiten du, halaber, jakimin filosofikoari buruz egia **antropologiko**-filosofiko handiak esanez: berriarekiko erresistentzia ñ errutinatzea. Xabier Amuriza

Lombrosok lurpetik ateratzen zituen "kriminal gaizto" izandakoen garunak eta eskeletoak, hauen izaeraren arabera lan **antropologiko**-kriminal fantasiaz beteak eraikiz. Harkaitz Cano

Halatan, bada, beste pasarte batek erakutsi zien modu are argiagoan erredaktore anitzen kontua; bat-batean, itzulgaian joera **antropologiko**-sinboliko halako bat zuen testua aurkitu zutenean: [...]. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antropologiko bat** (4)

---

antropologikoki *iz* antropologiaren ikuspegitik.

Joseba Zulaikak azterketa bat egin zuen, euskal biolentziaren fenomenoa **antropologikoki** ulertu nahita: zein testuinguru sozial eta kulturaletan ematen den, zein esanahi sinboliko duen, etc. Joxe Azurmendi

Neolitiko garaia arte itxaron behar dugu **antropologikoki** euskal etniaz, eta, ondorioz, euskal arteaz hitz egin ahal izateko; edo gutxienez euskaldunak eginiko arteaz hitz egiteko. Berria - Kultura

Antropologikoki ulertzea, ez da nonbait ulertzea. Joxe Azurmendi

---

antropologismo *iz*

Engoitik orain, kontzeptu orokor oso zabala da ja, egiaren edo balioen erlatibotasun arrunta erakusten edo suposatzen duen zenbait praxi franko ezberdin zientzietan barnebiltzen duena: orduan erlatibismoa gaur egun aurkitu, perspektibismo, historizismo, soziologismo, psikologismo, **antropologismo**, biologismo, eboluzionismo, pragmatismo, fikzionalismo, etab., gisan aurkitzen da de fakto. Joxe Azurmendi

Indartu egiten da edozein motatako **antropologismotik** garbia izango den metodoa definitzean lortu diren emaitzekin. Xabier Arregi

---

antropologizatu, antropologiza(tu), antropologikzatzen da/du *ad* antropologiko bihurtu.

Filosofia krisiune guztietan **antropologizatu** egin dela ohartarazten digu Cassirerek: sofistekin, Berpizkundean, Ilustrazioan, Lehen Mundu Gerraren ondoan. Askoren artean

Joera dago, beraz, Marx **antropologizatzeko**, bera totalitateen historialari bihurtzeko, eta berarengan humanismoaren asmoa aurkitzeko; joera dago, beraz, Nietzsche filosofia transzendentalaren ikuspegitik interpretatzeko eta bere genealogia jatorriaren bilakuntzaren egitasmo baten mailara jaitsarazteko; joera dago, azkenik, alde batera uzteko, sekula loratu izan ez balitz bezala, historia berriak [...] Xabier Arregi

---

antropologo 1 *iz* antropologian aditua den ikerlaria.

Azkenean, "el individuo es un mito", Ashley Montagu **antropologoak** ez zuen beharbada arrazoi puska bat gabe esaten. Joxe Azurmendi

Kultura arrotzen berri eman diguten **antropologoek** askotan jokatu behar izan dute horrela lehenago (orokortzea zientzia ororen baldintza da). Joxe Azurmendi

Finkielkrautek ez du **antropologoekin** argudiatzen - **antropologoen** etsaia da: hain zuzen esentzialki erlatibistak iruditzen zaizkio **antropologoak**! Joxe Azurmendi

", galdetu zuen **antropologoak** hizpidea ematen zidalarik. Karlos Linazasoro

Marten diharduen **antropologo** baten tankera hartzen bazion batzuetan bere buruari, berdin har ziezadakeen neuri ere, autismoari buruzko eta berari buruzko **antropologo** batena. Xabier Olarra

2

Dena dela, **antropologo** kritiko batzuek (J. Joxe Azurmendi

Antropologo biologistak alde bat bakarra hartzen du aintzat, natura: horrekin ezin da historia esplikatu. Joxe Azurmendi

Ortega-k arbuiatzen duen beste positibismo bat zientismo soilarena da: **antropologo** "zientifiko soil" batzuek, antropologia eta historia ez dituzte ezertarako nahastu nahi. Joxe Azurmendi

---

antropometria *iz* giza gorputzaren neurrien eta proportzioaen azterketa.

Baita ezagun egin zuten belaki eta eskulturak ere, hots, bere garaian horrenbeste polemika sortu zuten **antropometriak**. Berria - Kultura

---

antropometriko *izond* antropometriarena, antropometriari dagokiona.

Orain neurriak hartzera etorri zaizkit, fitxa **antropometriko** bat egin gura izango dute fusilamendua baino lehen. Koldo Izagirre

---

antropomorfiko *izond* antropomorfismoari dagokiona; giza itxura duena.

Jaungoikoak, beraz, bere antzeko egin zuen gizakia, Jaungoikoaren beraren irudira egin zuen; *Ar eta eme egin zituen,* ez dela era **antropomorfikoan** ulertu behar, Jaungoikoa bizardun eta iletsua bailitzan, era espiritual teozentrikoan baizik. Imanol Unzurrunzaga

Neurrien sistema globalak eta itxiak dira batez ere, eta ez forma hutsak, eta halako diren aldetik erreferente **antropomorfiko** bat aurkitzen dute beti: proportzio maskulino idealen itzulpen aritmetikoa da doriarra, "emakumearen lerdentasun eta xumetasunarena" joniarra, eta "neskato baten xumetasunarena" korintoarra. Santiago Iruretagoiena

Psikologiaren entrega bera ere, mingarria zirudien arren, mingarria bezain onuragarria gerta liteke, kristau-teologiatik ken litzakeelako estalki **antropomorfiko** horietako batzuk, iraganean giza arimaren eta bere Egilearen artean hesi guztietako setatienak gertatu zirenak. Iñaki Mendiguren

Bi ikuspegiak bat datoz Jainkoaren irudiarekin, mozorro **antropomorfikoa** duen pertsona gisa, eta giza irudimenak ez dirudi gai denik harantzago joateko. Iñaki Mendiguren

Bizitzeko borroka, askotan ohi den bezala, era horretan abereetara, landareetara eta are mineraletara ere zabalduz gero, kontzeptu **antropomorfiko** bat baizik ez da. Josu Zabaleta

Eta iceberg **antropomorfikoak**. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antropomorfiko bat** (4)

---

antropomorfikoki *adlag* era antropomorfikoan.

Honen ordez jokabidea iraultzen da eta batasun helburudunaren printzipioren baten errealitatea, hipostatikoa den heinean, oinarrian ezarriz hasten da, halako inteligentzia goren baten adigaia, bere baitan osoki ikertezina den adigaia, **antropomorfikoki** determinatuz eta izadiari helburuak bortxaz eta diktatorialki ezarriz hauek izadiaren ikerkuntza fisikoaren bidetik bilatu beharrean. Ibon Uribarri

---

antropomorfismo *iz* giza itxura eta nolakotasunak egoztea gizatiarra ez den zerbaiti.

Zenbaitzuek, **antropomorfismoan** urrunago joanez, Hura gorputz bat, atributuz hornitua, zela sinetsi zuten, eta beheren maila horretatik igoz, beste batzuek Jainkoagandik gorputza kendu dute, atributu soilak egotzi. Xabier Kintana

Gogoan izan, ordea, Onqelosek zer-nolako interes berezia agertzen duen bere Targum-ean Bibliako testuetan Jainkoaren **antropomorfismoa** apalago eskaintzeko. Xabier Kintana

Horregatik, munduaren kausa ideian pentsatzeko baimena dugu, ez **antropomorfismo** sotil baten arabera soilik. Ibon Uribarri

Adigai gisa zehazki determinatzea, eta errealitate gorenaren aurka dagoena, hots, agerpen soilari dagokiona (**antropomorfismoari** dagokiona adiera zabalean) deuseztatzea. Ibon Uribarri

---

antropomorfista *izond* antropomorfismoari dagokiona.

Errealitate gorenaren aurka dagoena, hots, agerpen soilari dagokiona (antropomorfismoari dagokiona adiera zabalean) deuseztatzea, eta aldi berean kontrajarritako baieztapen denak gainditzea, ateistak, deistak edo **antropomorfistak** direla ere. Ibon Uribarri

---

antropomorfo *izond/iz* gizaki itxura edo forma duena.

Eguzkia goresten zuen zibilizazio haren seiehun objektu inguru zeuden: abereak, uztak, landareak, apaingarriak, ontziak, jainko-jainkosen irudiak, hilarriak, hilkutxak, irudi **antropomorfoak** zein zoomorfoak, [...]. Berria - Harian

Bost mila urtetik gorako menhir estatua **antropomorfo** bat aurkitu dute Canovelles herrian (Bartzelona), indusketa arkeologiko batzuen ondorioz. Berria - Kultura

Horrela egiten du lan estereotipoak, pertsonak panpinduz; haiei barrua kendu eta hutsunea ideia-lastoekin edota ideia-trapuekin betez; pertsona odolki **antropomorfo** bihurtuz, irudi batekin esanda. Bernardo Atxaga

Gainerako primateek katuaren antzeko gorputza badute ere, **antropomorfo** handiek zutikako jarrerak dituzte. Berria - Gaiak

Arrabio, iz. Jatorriz, sutan bizi zen narrastia; gerora, **antropomorfo** hilezkorra, baina beti pirofiloa. Xabier Olarra

---

antroponimia *(corpusean ez dago; ETCn **64** agerraldi) iz* izen propioen jatorria eta esanahia ikertzen duen onomastikaren adarra.

Berez obra horietako ideia linguistikoak (ortografiari buruzkoak, **antroponimia** arlokoak, eta abar) Arana-Goirik lehenagotik zituen buruan. ETC-literatura, saiakera

Eugene Goihenetxeri dagokion bilduman Ricardo Cierbideren 1283ko testu baten bidez Nafarroako **antroponimia** irakur daiteke erdaraz. ETC-prentsa

Paleografia oso ondo menderatzen zuen, eta hortik abiatu zen **antroponimia** eta onomastikaren mundura. ETC-prentsa

Ipuinak eta olerkiak idatzi zituen, eta toponimia eta **antroponimia** landu. ETC-prentsa

Halaber, indize baliotsua dakar, batez ere filologoentzat, "euskal toponimia eta **antroponimiarako** datu ugari" bildu dituztelako. ETC-prentsa

Gogoan dut pentsatu nuela Satrustegi bera zela kontrakoaren adibide, euskarazko **antroponimiari** egindako ekarpena aintzat harturik. ETC-prentsa

Lehena **antroponimiaz** ari zen, erromatarren garaiko toponimiaz: orain, Erdi Aroko garaiko arrastoez ari da. ETC-prentsa

Euskarak Errioxan dituen erroak ezagutaraztea zen asmoa: toponimian, **antroponimian**, folklore aldetik... ETC-prentsa

Horietako askok sektorekako lanketetan hartu dute parte, hau da, hezkuntza, administrazioa, sozioekonomia, kultura/hedabideak eta izen bereziak (toponimia eta **antroponimia**) ataletan. ETC-prentsa

Gizaki orok eskubidea du bere **antroponimia** eremu guztietan berea duen hizkuntzan erabiltzeko, eta beste sistema grafiko batera, behar denean soilik, ahalik eta modu fonetikorik fidelenean transkribatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, gaurko izendapen geografikoak eta **antroponimia** erabili ditut nahiko maiz, behar bezala ohartarazita: Karlos Martel, Frantzia, etab. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erdi Aroko **antroponimia** aztertzen zegoela, ikerlariak euskal arrastoak topatu zituen. ETC-entziklopedia

---

antroponimo *iz* pertsona izen propioa.

Bulegora itzuli zen, José Pedro Machadoren Hiztegia ireki, eseri, eta onomastika ataleko zutabeak begiratzen hasi zen, A letratik, lehen izena Aala **antroponimoa** da, jeneroren berririk ez da ematen, ordea, maskulinoa, femeninoa, ez dago jakiterik. Jon Alonso

Goizuetako Muxurdin Borda (testu zaharretan Mussurdin) **antroponimoa** datorkit burura. Patziku Perurena

Bestelako osagarririk ere badu liburuak: lehen bertsolerroen zerrenda alfabetikoa, **antroponimo** eta toponimoen zerrenda, aztertutako hitzen zerrenda eta adizkitegia, bibliografia, Perez de Lazarragarekin zerikusia duten argazkiak eta irudiak... Berria - Kultura

---

antropozeno *(corpusean ez dago; ETCn **173** agerraldi, horietatik **149** azken sei urteetan)* **1** *iz* zenbait zientzialariren arabera, giza eskuartzearen efektuak Lurrean modu globalean nabaritzen hasi zeneko aldia.

Antropozenoa gizakien jarduerak, bereziki Industria Iraultza geroztik eta Holozenoaren ondoren, Lurra nabarmen erasaten duen egungo garai geologikoa izendatzeko erabiltzen den terminoa da, zientzilari batzuek erabilia. ETC-entziklopedia

Irakurtzekoa da, honen harira, Joseba Azkarraga Etxagibelen artikulua: Emozioak **antropozenoan**. ETC-literatura, saiakera

Chakrabartyk zenbait klimatologistaren termino berria mailegatu du, giza eraginak planeta aldatu duen garaiaz hitz egiteko, **Antropozenoa** (XVIII. mendetik egundaino), eta egun gizadia agente edota eragile geologiko bihurtu dela proposatzen du. ETC-literatura, saiakera

Zientzialari batzuen arabera, lehen bonba atomikoak zapart egin zuenez geroztik, **antropozeno** garaian bizi gara, eta ez holozenoan. ETC-literatura, saiakera

Esaterako, Geologia alorreko zientzialari askok Holozenotik **Antropozenora** jauzia jada egin dugula onartzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kostaldean **Antropozenoko** material metaketa aurki dezakegu: jada, Getxoko Tunelboka eta Gorrondatxe aldean, bost metroko lodiera duen material berrien metaketa naturala gertatu da". ETC-prentsa

Adituen arabera, Lehen Mundu Gerra amaitu zenetik, 1945etik, aro berri batean murgilduta dago gizakia, **Antropozenoan**, hain zuzen ere. ETC-prentsa

Alde batetik, baliabide energetikoen krisia **Antropozeno** deitu berri den aro geologiko laburrean, eta bestetik, erregai fosilen konbustio hazkorragatik sorturiko beroketa efektua, horrek dakarren aldaketa klimatikoarekin. ETC-prentsa

Tokirik bakartienetara ere heltzen dira **antropozenoaren** markagailu koloredunak. ETC-prentsa

Alejandro Zearreta EHUko ikerlaria eta irakaslea da, eta **antropozenoaren** erreferente bat: haren arabera, etorkizunean teknofosilak agertuko dira. ETC-prentsa

---

antropozentriko *izond* erreferentzia puntu gisa gizakia duena.

Eboluzioaren lehenengo mailetan animaliak -oso joera **antropozentrikoa** da eboluzioa mailakatze hau- odol hotzekoak ziren eta euren gorputzen tenperatura inguruko tenperaturaren araberakoa izaten zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gero, eboluzioaren mailetan gora egiten zuten neurrian -eboluzioan gora egite hau, gizakion goietara, noski, beste harrokeria **antropozentriko** bat besterik ez da-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ekologismoaren barruan bi joera daudela diote: **antropozentrikoa** eta ekozentrikoa. Berria - Gaiak

Animaliak bere buruaz beste egin dezakeela pentsatzea kontzeptu **antropozentrikoa** da oinarrian. J.M. Olaizola "Txiliku"

"Enpresaren orientazio **antropozentrikoagoa"**, adibidez, erretorika hutsa izaten da gehiegitan. Iñaki Heras

---

antropozentrismo *iz*

Antropozentrismo hori gizonzentrismoa bihurtzen da zerrendaren azken termimoan, gozatzeko eskubidea gizonezkoari bakarrik dagokiola iradokitzen baitu. Joxerra Garzia

Basoko egurra alferrikakotzat jotzeak **antropozentrismo** nabarmena salatzen du, konta ezin ahala izakirentzat bizia baita egur gizakiarentzat alferrikako hori. Joxerra Garzia

Animaliei buruz ari garenean, gertatuko zaiona zer den ezagutzea jakinaren gainean egotea eta berariaz egitea lirateke frogatu beharreko puntuak, animaliak tasun horiek dituela pentsatzea **antropozentrismo** hutsean erortzea bailitzateke. J.M. Olaizola "Txiliku"

Batzuek **antropozentrismoa** aipatzen dute, eta era askotako arrazoi epistemologikoak ere erabiltzen dituzte. Askoren artean

Antropozentrismozko bekatua. Jon Muñoz

---

antropozentrokeria *iz* antropozentrismoa, gaitzesgarritzat markatua.

Indarrean den jendartearen **antropozentrokeria** eskasa agerian du uzten. Jose Angel Irigaray

---

antrustioi *iz* erregearen basailua.

Lege saliko eta erripuarioetan ezin konta ahala xedapen daude frankoentzat, eta banaka batzuk bakarrik **antrustioientzat**. Iñaki Iñurrieta

Ez du aipatzen frankoen arteko lehen pertsona-gradua, hau da, **antrustioiei** dagokien artikulua. Iñaki Iñurrieta

Erromatar nobleen artean hiru gradu eman ondoren, eta lehenarentzat erregearen mahaikide izaera, ez zeukan esaterik titulu horrek **antrustioienak** baino gehiago markatzen zuela jatorrizko aitoren semetza. Iñaki Iñurrieta

Esango zait **antrustioien** taldeak gizon libreena ez bezalako taldea osatzen zuela Estatuan, baina, feudoak hasieran aldagarriak eta gero biziartekoak izan zirenez, hortik ezin zela jatorrizko aitoren semetzarik sortu, pribilegioak ez zeudelako oinordetzazko feudo bati lotuta. Iñaki Iñurrieta

---

antsi ik **antsi**a.

---

antsia *(orobat **antsi** g.er.)* **1** *iz* nahi bizia edo suharra; kezka. ik **irrika**[1].

Antsia ote da gainbehera joaten hasteko lehendabiziko urratsa? Berria - Euskal Herria

Erregai usaina sudurrean, zutik paretaren kontra bizkarra, gure **antsia** eta intziriez landa doi adi genezakeen bertze deus. Xabier Montoia

Euskarari eusteko berandu ote den sumatzeak sortutako **antsia**. Berria - Harian

Bidaiariek **antsia** eta auhenezko koru bat osatzen zuten. Koro Navarro

Nor bere patuaren, biktimaren eta kolektibitatearen jabe izatearen **antsia**. Harkaitz Cano

Massive Attack taldearen zinta behatzen nuen eta ilunak bazterrak belzten zituen bitartean, musikak **antsia** hazten zidan. Itxaro Borda

Txori burlati bat gurutzatu zen lur arras eta intziri egin zuen haur baten **antsia** antzeratuz. Juan Garzia

Egitarauak erakartzen ninduen, nola edo hala Joanaren gandikako urruntasunak pizten zidan **antsia** arinduko zidala espero nuelako. Itxaro Borda

Irakeko jendetzaren %15 osatzen duten eta iparraldeko hiru probintziatan 1991ko Golkoko Gerraz geroztik autonomia duten kurduen **antsia** da NBEren berme eta babesik

gabe Iraken gehiengoan dauden xiitek ez dutela onartuko herrialdearen egituraketa federal bat, eta, beraz, euren autonomia deuseztatu nahi izango dutela. Berria - Mundua

Badago **antsia** antzeko zerbait, zerbaiten bila aritze eta ezin hori.. Ana Urkiza

Barnea iraultzen zion **antsia** tzar hori zer zen ez zekien. Itxaro Borda

Logelara itzuli zen, pasabidetik barna zihoala hauxe pentsatzen zuela, Estali egin da, estali egin da, eta hain **antsia** handiaz pentsatu ezen hemen esan eta egin diren hitz eta egintzen etorkizuna estalita egote horretan erabakiko zela zirudiela. Jon Alonso

Botere **antsia** ttiki eta konfesaezin bat izan zitekeen, arma eskuetan sentitzean edo granada bat jaurtitzean, une batez. Harkaitz Cano

Banekien neurrigabekoa eta gehiegizkoa zela gutizia hura ezagutu berri batentzat, baina ezin geratu nuen **antsia** oldartsu hura inola. Hasier Etxeberria

Madrilgo Burtsa Etxea lehertzeko dena neukan prest eta **antsitan** nengoen hartarako, nola mendizalea gailurrerako. Hasier Etxeberria

Neska-mutikoek **antsia**-oihu txikiak eginez adierazten zuten beren urduritasuna. Berria - Kultura

Mendebaleko kulturaren krisi kontzientzia larri bat dagoela, ebidentziarainoko ziurtasunarekin, izugarrizko **antsi**-larriarekin. Joxe Azurmendi

Antsia une ugari pasatzen nituen zigarro haiek irentsi behar nituela pentsatzean, eta denak jarraian eta presaka erretzera bultzatzen nuen. Pello Lizarralde

Emakumeak esaten zidan hitz bakoitza **antsiaz** entzuten nuen. Hasier Etxeberria

Ordubetez egon nintzen neure buruari **antsiaz** galde eta galde ea liluramenduren bat izan ote nuen. Josu Zabaleta

Antsiaz itxaro dut nire bihotzera pakea ekar dezakeen hitz bakarra. Ramon Etxezarreta

Desiraz eta **antsiaz**, bezperako urrats zoroen errepikatzera Lili Marlen deitzen dut: [...]. Itxaro Borda

Arnasa hartu barik edan nuen, **antsiaz**. Xabier Montoia

Goizean goiz amak esan zizkion hitzak matxinatzen zitzaizkion, antsiaren **antsiaz**, trumilka bizian: [...]. Anjel Lertxundi

Luzaro egon nintzen zain, ezertarako erabakirik ezin harturik, gogoa argi, baina eromenezko **antsiaz**. Josu Zabaleta

Zentzu morala galdurik, lizunkeriara jo dute, aseezineko **antsiaz** era guztietako bizioetara emanak bizitzeko. Elizen arteko biblia

Behin Orixeren iloba bati aditu nion, euskaldunok espanturik gabe egiten omen ditugula heriotz puntzioak, ez Andaluzian bezala negar dunduriz eta **antsiz**, lotsagarri emateraino. Patziku Perurena

-Eta non hil zen? galdetu nion Fernandori, lehenbailen jakiteko **antsiz**, zubi gainetik Areso aldeko basoetara begira, nonbaitean han hil zelakoa esan behar balit bezala. Patziku Perurena

Gero, begiak sabairantz jasorik, **antsiazko** suspirio bat irten zitzaion buru-bihotzik gabeko ausarkeria baldar hark eragina. Anjel Lertxundi

2 *ez-antsia* antsiarik eza.

Deliberatu bainuen ezen merezi zuela bertze egun baten igurikitzea, biharamuneko eguzkiaren zain; ez, ordea, antsiak harturik, baina **ez-antsiak** eta nagiak, denboraz ohartu ere gabe, denboraren jabe. Joan Mari Irigoien

· *(adizlagun gisa)* Eguerdian, haatik, eguraldia altxatzen hasi zen eta, hala, aulkia hartu eta etxe aitzinean paratu nintzen, eguzkitarat, musker bat bezala, laxo, zabal eta **ez-antsia**. Joan Mari Irigoien

3 *antsia izan*

Antsia zena? Itxaro Borda

---

antsiatsu *(orobat **antsitsu** g.er.)* *izond* antsiaz betea.

-Besagia pausatzerakoan aitaren galde **antsiatsuak** hauteman zituen "Nor da? Nor da" errepikatzen. Itxaro Borda

Apezari behako **antsiatsua** igorri eta bigarren irakurgaiari lotu zitzaion. Itxaro Borda

Mattin harroina zen, eta ni etxean edo etxeko zoko batean galdu haizea, eta hargatik mintzatzen zen aita Mattinekin **antsiatsu** eta arduratsu, eta enekin epelki eta laxoki. Joan Mari Irigoien

Eta urbiaindar guztiek zerabilten ipuin hura mihian, kezkatsu eta **antsiatsu**, baita gure aitak eta Mattinek ere. Joan Mari Irigoien

Zeinen **antsiatsu** eta arduratsu kontatu zidan osabak guztia biharamunean! Joan Mari Irigoien

Gero beste bat jo zuen, eta beste bat, eta azkenean denak batera sakatu zituen, gero eta **antsiatsuago** atari barruko balizko sexu saioan pentsatuz. Jon Arretxe

---

antsiatu, antsia(tu), antsiatzen **1** da *ad* antsia izan; kezkatu.

Eta bai, banekien zer-nolakoak izan zitezkeen bertze fabore haiek, kontu haiek ordu arte kezkatu eta **antsiatu** ez ninduten arren, osaba Joanikoten munduarekin eta jaun Marcelenarekin aski eta sobera nuelako artean, bertze nonbait erran dizudan bezala. Joan Mari Irigoien

Ni horrelako gertakizunekin **antsiaturik** nago, otsoen kontrako psikosia baitago zenbait tokitan. Gotzon Garate

Harik eta egun batean, kezkak kezkaturik eta antsiak **antsiaturik**, barrena lehertu zitzaion arte, jartzen zelarik katolikoen eta protestanten aurka, eta erraiten zituela birao iduriko hitz haiek: [...]. Joan Mari Irigoien

Hura erran bezain laster, alegeratu zen alde batetik, baita **antsiatu** ere bertzetik. Joan Mari Irigoien

Baina ez zaitez kezka, ez **antsia** eta ez asalda horregatik, zeren mundu honetan ez baitago gaitzik kontsolagarririk ez duenik. Joan Mari Irigoien

Otoitz egin diezaiogun Jainkoari eta ez gaitezen **antsia**, zeren bere buruaz antsiatzen denak burua galtzen baitu. Joan Mari Irigoien

2 (era burutua izenondo gisa)

Berorren erantzunaren zain ditu gure bihotz **antsiatuok**. Oskar Arana

Zergatik zigortu du izadiak, beraz, gure arrazoimena bide hura bilatzeko grina **antsiatu** batekin, bere kontu garrantzitsuenetako bat bailitzan? Ibon Uribarri

---

antsiaz *adlag* antsiatuta.

Emakumeak esaten zidan hitz bakoitza **antsiaz** entzuten nuen. Hasier Etxeberria

Arnasa hartu barik edan nuen, **antsiaz**. Xabier Montoia

Thierryk iheserako keinua markatu zuen, baina emazte zohiak besotik tinkatu zuen, **antsiaz**. Itxaro Borda

Bildotsak **antsiaz** zurrupatu bitartean, amak, saihetsetan mutur kolpe zakarrak jaso arren, jaten ari dira, trankil, axolagabe. Itziar Otegi

Hortaz, hiltzera doazela jakitean, onura handitzat daukate eta **antsiaz** desiratzen dute luzexeago miserian bizi ahal izatea, ondoren hilko badira ere. Imanol Unzurrunzaga

---

antsietate **1** *iz* ezinegon edo hersturazko egoera.

Ardura horrek jokalariengan urduritasuna sor dezakeela onartu zuen Valverdek, baina hori **antsietate** bihurtu daitekeenik ukatu zuen. Berria - Kirola

Neurri batean beren erretorikak errepublikano bihurtu ditu demokratak, beldurra **antsietate** bihurtu duten eragingarritasun berarekin. Berria - Mundua

Antsietatea, bereziki, emakumeei erasaten dien gaitza da. Berria - Gaiak

Freudek zioen beldurraren eta **antsietatearen** arteko aldea dela **antsietatearen** kasuan mehatxatuta dagoena norberak bere buruaz duen irudia dela. Berria - Mundua

Maiteminduaren **antsietatea** bera zeukan; maiteminduak bere kuttuna galtzeko duen ikara larri bera zen Istillagak bere burua galtzeko zeukana. Pako Aristi

Larria da egoera, ados, baina, dagoena onartu eta barneratu behar dugu, presioa eta **antsietatea** ahalik eta ondoen gainditzeko. Berria - Kirola

Zeren baldintza horietan ibiltzeak ez dakar batere erosotasunik; giroak **antsietatea** eragiten du, eta neurriz gora dirua botatzeko euforia arriskutsu bat. Pako Aristi

Ea lortzen dudan aldi horretan Ismeten esku utzi dudan zereginaz gehiegi ez pentsatzea, ziurgabetasuna baztertzea, **antsietatea** saihestea. Jon Arretxe

Pentsatze hutsak nekez bazter zezakeen **antsietatea** eragiten zion. Alain buruzagi izendatu izanak areagotu egiten zuen Pasaian zeraman denboran ezer lortu ez izanak sorrarazten zion **antsietatea**. Harkaitz Cano

Polizia iritsi zenean emakumea beldurtuta eta **antsietateak** jota zegoen. Berria - Euskal Herria

Bere **antsietateak** panikora eraman zuen, bakardadeari beldur itzela zion; ezinbestekoa zuen, ordea, idazteko: [...]. Berria - Kultura

Etxea goitik behera miatu nuen garai bateko zigarro aleren baten bila, **antsietateari** aurre egiteko tabakoa lagungarria gertatzen baitzait. Ramon Saizarbitoria

Berak ez baitzuen ez **antsietaterik** ez beste emoziorik sentitzen. Joanes Urkixo

Antsietatearengatik jaiotako uste funtsgabeak dira. Jon Alonso

Apenas hitz egin genuen, baina kezkatu, bai, kezkatu nintzen, soan ezohiko **antsietatea** eta eskuan ezohiko dardara nabaritu bainizkion, ardoa ezpainetaratzen zuen bakoitzean. Joan Mari Irigoien

Guri so gelditzen dira halako **antsietate** neurotiko batez, eta azkenik lepokoa jarri, lizentzia ordaindu eta etxera eramatea beste erremediorik ez da gelditzen. Jon Alonso

Baina, Zesareo aurrez aurre banuen ere, gutuna lehenbailehen irakurtzeko irrikan nengoen, **antsietate** handi batek harturik. Joan Mari Irigoien

Antsietate apur bat dugu, baina ondo gaude. Berria - Kirola

Izan ere, depresio eta **antsietate** mota batzuk kanpo utzita, buruko gaitz askok osagai biologikoak dituzte. Berria - Gaiak

Ainara Esteran euskal presoari, jipoia entzun zuenean, **antsietate** krisia eman zion, eta erizaindegira eraman behar izan zuten. Berria - Euskal Herria

Gero eta pertsona gehiago, **antsietate** egoeretan adibidez, bere bizitzako beste eremu batzuetan lanean, gizartean, lagunekin edo familian aurkitzen ez duen plazera edo gogobetetasuna bilatzen saiatzen da janarian. Berria - Euskal Herria

Jende askok izaten ditu **antsietate** arazoak. Berria - Euskal Herria

Alprazolan: Lasaigarria da, eta **antsietate** eta izualdi egoeretan erabiltzen da. Berria - Euskal Herria

Etxean afaldu dutela, afaltzera irtetekoak zirenean Bertak **antsietate** atake antzeko bat izan duelako. Eider Rodriguez

2 *antsietate asaldura* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Buru asaldura batek ere ez du etiologia argitzen (adibidez, depresio batez edo **antsietate asaldura** batez). ETC-entziklopedia

3 *antsietate nahasmendu* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Antsietate-nahasmendua edo antsietatezko neurosia sintoma nagusia antsietatea edo larritasuna duten buruko gaitz nahasmendu neurotikoetako bakoitza da; sarritan, bestelako depresio-sintomak eta loaren alterazioak ere azal daitezke. ETC-entziklopedia

Thokozile Masipa epailearen aginduz, azterketa psikiatrikoa egingo diote Oscar Pistoriusi, atleta paralinpiarrak "**antsietate nahasmendu** orokorra" ote daukan jakiteko. ETC-prentsa

Eskizofrenia paranoidea eta **antsietate nahasmendu** orokortua ditu. ETC-prentsa

Zaballako espetxean (Araba) dago gaur egun, baina, azaldu dutenez, kalean behar luke, gaixotasun larri eta sendaezina duelako: eskizofrenia paranoidea eta **antsietate nahasmendu** orokortua. ETC-prentsa

Antsietate nahasmendua dagoenean ere botika hartzea egokia da: ez, ordea, antsietate egoera puntuala denean. ETC-prentsa

Ager daitezke depresioa, **antsietate nahasmenduak**, nahasmendu psikosomatikoak... ETC-prentsa

Amesgaiztoak **antsietate-nahasmendu** larri baten ondorioz etortzen ahal dira, Ephialtesen eritasunean gertatzen den bezala, konparaziora. ETC-literatura, saiakera

Nahasmendu mentalak: Depresioa, **antsietate nahasmenduak**, alkohol eta sustantzia psikoaktiboen abusu edo/eta mendekotasuna, lo-nahasmendua, elikadura jokabideen aldaketa, sexu-disfuntzioak, nahasmendu psikotikoak, nortasunaren nahasmenduak, nahasmendu obsesibo-konpultsiboa, nahasmendu bipolarra... ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *antsietatezko neurosi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Antsietate-nahasmendua edo **antsietatezko neurosia** sintoma nagusia antsietatea edo larritasuna duten buruko gaitz nahasmendu neurotikoetako bakoitza da; sarritan, bestelako depresio-sintomak eta loaren alterazioak ere azal daitezke. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antsietate arazoak** (5)
> **antsietatea eragiten** (4); **da antsietatea** (4)

---

antsigar ik **antzigar**.

---

antsika *adlag* intzirika, hasperenka.

"Esnatu, David", xuxurlatu zuen Josebak besotiik heldu eta astindu bat emanez. Goiko literatik erdi-zintzilik zegoen, buruz behera. '**Antsika** ari hintzen". Lurrera jaitsi eta nire alboan esri zen: [...]. Bernardo Atxaga

Honelaxeko galde zentzugabeak eginez segitzen dute **antsika**. Patziku Perurena

Irudi zuen mundu osoa zebilela negarrez hipaka eta **antsika**. Patxi Zubizarreta

Ikaslearen atzetik abiatu ziren, eta beren zalaparta hartan ahaztu egin zitzaien Cyrus txakurra, sokaz lotua bankuari, zaunkaka eta **antsika**, bere existentziaren berri eman nahian. Anton Garikano

---

antsikabe *izond* arduragabea, kezkarik gabea.

Mitoei buruz mintzatzen zen, gu geure artean termodinamikari buruz bezalaxe, esperientzia bakoitzean egiazta daitekeen lege fisikoren bat balira legez, eta doinu **antsikabe** berdintsuan mintzatu ere. Joxe Austin Arrieta

Gora begira, hantxe zegoen -Ramsay jauna- eurenganatzen, gerriei eragiten, **antsikabe**, bere baitaraturik, urrun. hoztu zait begirada, galdu du behinolako arrotz-zaletasun guztia, dagoeneko ezerk ez dit barrerik eragiten, eta aspaldiko urteetan imintzio biziak, irriak eta hitz-jario oparoak eragiten zizkidan guztia azaletik lerratzen zait orain, aztarnarik utzi gabe, eta isiltasun **antsikabe** batek lotzen du nire aho hertsia. Anton Garikano

---

antsikabeki *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)* *adlag* antsikabez.

Baina beldurrik gabe, Jainkoz, kontzientziaz eta munduaren esateaz ere konturik egin gabe **antsikabeki** dabiltzanek, saltzen dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hain nekez eta penaz bildu zinituen onak eta onhasunak, eta hain zuhurtki eta maiteki begiratzen zinituenak gero, hain laxoki eta **antsikabeki** largatzeintuzu: lehen zein hertsi eta itxekin baitzinen, gero hain franko eta liberal egiten zara. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

antsikabetasun *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* antsikabe izatearen nolakotasuna.

Neskek horregatik aurpegiratzen zioten sarri su falta Andoniri; jeloskortasunik eza, **antsikabetasunarekin** nahasi egiten zuela. ETC-literatura, saiakera

Espainiar biztanleriaren gehiengoak **antsikabetasunez** hartu zituen elizaren aurkako neurri hauek -txalotzen edo bultzatzen ez bazituen ere-, baina foru-herrialdeetan gehiengoa neurri hauen aurka agertu zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

antsikabetu, antsikabe(tu), antsikabetzen *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)* da/du *ad* arduragabetu, kezkak uxatu.

Atsegin-eztitan **antsikabetzea** esaten ziok horri fratre porcospino Akinoko tripaundiak. ETC-literatura, saiakera

Baina barren hartan ohituz gero, sudurrak kirats hartaz zenbait denboraz beteak erabiliz gero, sortzen zara, **antsikabetzen** zara, ederresten duzu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

antsiolitiko *(ETCn **200** agerraldi, horietatik **101** azken sei urteetan; orobat **ansiolitiko**) iz* nerbio sistemari eragin eta antsietatearen sintomak urritzen dituen sendagaia.

Kalamuaren eragina beste aukera terapeutikoenekin (analgesikoak, jateko gogoa pizteko botikak, **antsiolitikoak** ...) alderatzeko entsegu klinikoak ez dira egin. Berria - Harian

Esan nahi dudana da **antsiolitikoen**, lasaigarrien eta pilula antidepresiboen dosia apurka-apurka jaitsi beharrean zegoela, apurka-apurka beregana zezan inguruarekiko interesa. Joan Mari Irigoien

Buruko edema hori **antsiolitikoak** eta estupefazienteen kontsumo nahasketak sortu ote zuen galdetu zioten kazetariek Fortuniri, baina zehaztasunik ezin zuela eman esan zuen: [...]. Berria - Kirola

Ansiolitiko paregabea aste guztia lanean eta zarata handirik gabe pasatu zutenentzat. Pako Aristi

Orgasmoa **ansiolitiko** eraginkorrena eta naturalena dela esan daiteke; pertsona osasuntsuen medikamentua. Luis Elberdin

Tabernaz tabernako eta diskotekaz diskotekako erabiltzaileak (anfeta mota pila, beste substantzia batzuekin nahastuta edo nahastu barik), bestelako ezagunak eta ezezagunak (**ansiolitikoak**, antidepresiboak, lasaigarriak, pizgarriak, analgesikoak). Sonia Gonzalez

Kalamuaren eragina beste aukera terapeutikoenekin (analgesikoak, jateko gogoa pizteko botikak, **antsiolitikoak** ...) alderatzeko entsegu klinikoak ez dira egin. Berria - Harian

Ez zarete mapa soziologikoan agertu ere egiten, urtean irensten dituzuen **antsiolitikoen** kopurua dakarren estatistika txepelen batean ez bada. Pako Aristi

---

antsioso *izond* antsiak jotzen duena.

Egia da ez naizela ni bereziki orekatua: baditut neure neurak, **antsioso** naiz oso, filia hainbat fobia ditut... baina horiek guztiak, sinets iezadazue, ez datozkit izenetik. Joxerra Garzia

---

antxa 1 adlag adkor samar. ik **antxean**.

Garaiak ziren, sendoak, hezurtsuak, ilea gorri-**antxa** eta aurpegiak indiar eitekoak. Juan Garzia

Haren ahizpa Ninik aurpegiera oker **antxa** zuen, eta ez hain espirituala batez ere; baina emakumeagoa zen, bazuen atsegingarri izateko gogoa, hipokrisia, disimulua. Josu Zabaleta

Gurea jatetxe arrunt bat da, merke **antxa** ematen dute. Harkaitz Cano

Hizketan, berriz, euskara batu **antxa** egiten zuen, bizkaierazko berbatxu batzuekin zipriztinduta. Xabier Mendiguren Elizegi

Ohi zuenez, ponpox **antxa** jantzia zegoen. Aingeru Epaltza

Langilea, latz-**antxa**, nabarmenkeriaren etsaia, ezkondua eta bi seme-alabaren aita. Aingeru Epaltza

Vilma genuen argazkitik begira, hemezortzi urterekin: biribil **antxa**, orduko modako jantzita, parpailezko soineko zuri batez eta bota beltz altuz, ile kizkurrezko xerloak bekokira erortzen zitzaizkiola eta lore sorta bat eta haizemaile bat eskuetan. Ander Irizar

Zeraman gorbata nabarmen **antxa** gertatzen zen jantzi haiekin, haren adinean eta urtaro hartan, eta nolabaiteko abenturazale eitea ematen zion. Ander Irizar

Ahots goxoa zuen, kantari **antxa**, eskola-ume batenaren modukoa. Ander Irizar

Etxe hura ilun **antxa** zen, eta gure aitak ez zuen lortu ongi ikustea Marioren andrea; bakarra ikusi zuen ttiki-ttikia zela eta kopetako ileak begiak estaltzen zizkiola. Fernando Rey

Elkarri hitzik trukatu gabean joan ziren zumardian barrena, urak gelditu eta ibaia putzu zabal **antxa** egiten den tokiraino. Felipe Juaristi

Abarkak erantzi eta gero, supazter inguruan bero-bero zeuden espartinak, orpoaldea txapalik zutela oinetan sartzean ere, igarriko zien estu **antxa** eta lehor edo zabal eta lasai zetozkion: espartuzko zola agudo lasaitzen baita hezetasunez. Pello Zabala

Niri, batzuetan, sendagai oso ona gertatzen zait -esan zion ahots lehor **antxaz**, eta Egutxik ez zuen erantzun. Ibon Uribarri

Hala ere, nere irudipen huts horiekin aski izanen ez duzunez, jarriko nauzu txulo **antxa** eta erakutsiko dizut erudizio pittin bat. Patziku Perurena

Haren janzkera militar **antxak** nolabaiteko aldea markatzen du gainerakoekin. Aingeru Epaltza

Burua erori egin zitzaidan eta ahora mugurdi ura sartu zitzaidan, baina gazi **antxa** zen... Fernando Rey

2 *hotz antxa* *(corpusean **hotzantxa** soilik) adkor* hotz antz.

Hark irratia piztu zuenez, amona, **hotzantxa** eta, bere berokian kukulduta gelditu zen. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **pala antxa** (3)

---

antxean *adlag adkor* samar. ik **antxa**.

Zenbat aldiz ez naiz eseri hantxe, lotsati-**antxean**, beste ikasleak iritsi aurretik! Karlos Zabala

Gerta liteke baldar **antxean** ari dela iriztea ere. Iñigo Aranbarri

Laneko pausoak, motel **antxean** hasitakoak, dagoeneko sendotuxeak dira tailer, fabrika, lantoki eta bulego gehienetan. Pello Zabala

Itsasotik edo ibairen batetik bi-hiru orduko bidean suertatuz gero, haietatik gertu **antxean** alegia, fiskalordeak belauniko jartzen omen ziren, Jainkoari eskerrak emateko. Pablo Sastre

Hotza oso harena; nirea epel **antxean**. Txillardegi

Bizkarrak uzkurtuz esan zuen, ez erabat axolagabe baina bai etsitu **antxean**. Fernando Rey

Arratsalde hartako manifestazioa normal **antxean** joan zen. Xabier Mendiguren Elizegi

"Zure atzetik joan nintzen", gaineratu zuen edalontzia jiraraziz, urduri **antxean**. Aritz Gorrotxategi

Ez zuten alferrik esaten lehengo zaharrek pertsona logura **antxean**, gose **antxean** eta diru-falta **antxean** ibiltzen dela ondoena, eta ez -gehitzen dugu gaur- ongizatezko deritzan gizarte honek saltzen dizkigun orotariko litxarrerien gaindiduran. Iñaki Segurola

---

antxera *iz* enkantea. ik **erremate 6**.

Azken urteotan ohiturazkoa bilakatu da pastoral baten amaieran **antxerak** edo enkanteak irabazten dituen herria izatea hurrengo urtean trajeria antolatuko duena. Berria - Kultura

---

antxeta 1 *iz* kaio mota txikia.

Antxeta bat dotore amildegian barrena, ene begi bistatik ehun tuasara. Koldo Izagirre

Hori da okerrena gure adinean, kontuak etorri badatozela, baina joan ere badoazela, zure **antxeta** hori bezala. Javi Cillero

Portuaren gainez-gain, **antxeta** batzu airean ibilki, kasik iduri heiek ere beren moldean nahi zutela omenaldian parte hartu. Herria

Beste **antxeta** batzuk ari ziren airean, lanbro artean biraka, baina euren antzeko haren berri emateko asmorik gabe. Joseba Sarrionandia

Hiru **antxeta** biraka ari ziren uluka. Orbela zapaltzen hasi zirenean **antxetaren** halako bi izanen zen hegaztia haizatu zen hostajetik. Lopez de Arana

Antxetarik gabeko itsaso bat. Koldo Izagirre

Antxetak eta beleak ikusi genituen, nahiz eta beleak harkaitzak ere izan zitezkeen, eta Rayk esan zuen birigarroak eta enarak eta hegazabalak zebiltzala gure gainetik hegan, eta bizi--bizi joan ginen, geure artean kantari. Koro Navarro

Antxetak jira-biraka eta txilioka zebiltzan airean. Lopez de Arana

Gure baforearen dieselak Guardaplatako Farolako harkaitzetan habia egina duten **antxetak** txilioka altxarazten dituenean ezein umek arrautzarik ebatsi ezin izan dien harkaitz haietarik gureganantz amiltzeko, eskifaiako inork ez du bista jaso nahi, **antxeten** agurrak itzuliaren zalantza dakarkigulako begietara. Koldo Izagirre

Antxeta gris bat, atzeko aldetik apur bat azkarrago zetorrena, mantso-mantso iragan zen ababorrera malekoiaren aurretik, mugimendu ñimiñoena ere egin gabe pasarela ondotik planeatuz. Mikel Hernandez Abaitua

Antxeta zuri-urdin mordo bat pasa da nire aurretik, karrakari; eta latapeko harkaitzetara jiraka jaitsi. Txillardegi

Antxeta burubeltzak zebiltzan hona eta hara. Txillardegi

Antxeta hankabeltzak, adibidez, desagertzen ari dira Ipar Itsasoaren inguruetatik. Berria - Gaiak

Teilatua eta alboak urdinak eta ukitu ezinezkoak zituen oskol bat, ortzi biribila bezain altua eta hutsa, non trumoien pare igo baitzen **antxeta** hegaldarien zarata. Koro Navarro

Ordurako, atzean utziak zituen hegazkinak Sacramento bailarako lur emankorrak autobideko marra grisaxkari jarraituz, **antxeta** jostari baten gisan. Javi Cillero

Ez litzaidakek batere gustatuko horrek afaldu duena afaldu behar izatea, ardi eta **antxeta** hilak -birao egin nuen neure artean "hil" hitza esateagatik-. Koro Navarro

Hain luze egon ginen geldirik, non **antxeta** zikin-grisak lasaitu, eta batzuk gure aldamenean jarri ere egin baitziren. Koro Navarro

Harkaitzaren zelaigune bihurgunetsuaren amaieran, **antxeta** saldo izugarriek oihu egiten zuten beren lagun hil berrien eta urteetako zirinaren gainean. Koro Navarro

Antxeta aldra batek, zalaparta gaitzetan, San Martin auzo aldera jo zuen; haratago abian itxuraz, Egia, Loiola eta Ametzagañaruntz. Txillardegi

-Horrelako **antxeta** pilarik ez nian sekula ikusi -esan nion-. Koro Navarro

Lurrera erori ginen, **antxeta** -zirinez betetako belar irristakorraren gainean. Koro Navarro

Antxeta moduko txoriak, zuriak eta txiliokariak, hegatsez arituko dira denon buruen gainean. Joseba Sarrionandia

2 ***antxeta arrosa*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Antxeta arrosa, Rhodostethia rosea. ETC-entziklopedia

3 ***antxeta burubeltz***

Antxeta burubeltzak zebiltzan hona eta hara. Txillardegi

4 ***antxeta hankabeltz***

Antxeta hankabeltzak, adibidez, desagertzen ari dira Ipar Itsasoaren inguruetatik. Berria - Gaiak

5 ***antxeta mokogorri*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

" **Antxeta mokogorri** " izena da euskara batuan erabiltzen den izen arrunta. Horrez gainera, bizkaieraz, "txirlet" izen arrunta ere badu. ETC-entziklopedia

Bere eztarri zuloa zabaldu eta **antxeta mokogorri** saldoa askatuko du hiriaren gain. ETC-prentsa

Sarritan beharrik gabe hartu dira maileguak, **antxeta mokogorria** adibidez, itzulpen hutsa da eta ez da inon esaten hori, horri kalatxoria edo txirtela esaten zaio. ETC-prentsa

Miru gorrien edo bertzelako hegazti harraparien artean, **antxeta mokogorriak** ikusi ditu, adibidez, NUPeko gida osatu bitartean. ETC-prentsa

6 ***antxeta txiki***

Ezkerreko besoan **antxeta txiki** bat tatuaturik zeukan, ber-bertatik ikusteko modukoa soilik. Javi Cillero

7 ***bonaparte antxeta*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Bonaparte antxeta, Chroicocephalus philadelphia. ETC-entziklopedia

8 ***Sabine antxeta*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Kopuruan ugarienak, besteak beste, gabai handiak, gabai arrea, gabai balearra, Wilson ekaitz-txori txikia, marikoi isatsluzea, **Sabine antxeta** edota mendebal-txori mokolodia izan dira. ETC-prentsa

Sabine antxeta, "Xema sabini". ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antxetak jira** (3)

---

antxina ik **antzina**.

---

antxinatasun ik **antzinatasun**.

---

antxintxika *(orobat **antxintxike** g.er.) adlag* lasterka.

Orduan bera **antxintxika** joan duk beste emakumeen artean ezkutatzera. Juan Garzia

Andreak ikusi zituen bezain laster, berehala, **antxintxika** joan eta ur bedeinkatu pixka bat eta isopoa ekarriaz etorri zen, eta esan zien: [...]. Patxi Ezkiaga

Erreka **antxintxika** pasatu zuten -Idoiak estropezu egin eta ia-ia luze erori zen bazterreko lokatzaren gainean-, eta estratatik gora hasi ziren. Jokin Muñoz

Ikusi ninduen bezain laster Izetaren gasolino zaharra kalafateatzeari utzi eta neuregana etorri zen **antxintxika**, eskuak kotoian garbitzen zituela. Koldo Izagirre

Eskaileratik gorako pauso gogorren hotsa entzun zuen, **antxintxika** zetorren Antoniaren "Mentxu, Mentxu...!" orroekin batera. Josu Landa

Sasi artetik atera zitzaion eta aldapan behera egin behar izan zuen **antxintxika**. Javi Cillero

Han abiatu zen landan barrena **antxintxika**, haizea bera baino arinago. Patxi Ezkiaga

Zakurra erasotzera datorkizunean, **antxintxika** egin beharrean, hobe gelditu. Gotzon Garate

Izan ere, gazteak ez du korrika egiten, Pernandoren moduan, **antxintxike** egin izan du beti, bai etxean eta baita Azkoitiko kaleetan ere. Iñigo Aranbarri

Ruben Ratón Ayala argentinarraren txima luzea laidoa zen Atotxa edota San Mameseko zelaietan, baloiarekin jostari, kanpo erdia pasa eta beste inork baino azkarrago **antxintxika** egiten zuenean. Iñigo Aranbarri

Bebarrutik **antxintxika** irten, espaloi ondoko taxia ikusi, atea ireki eta zure ondoko eserlekuan eseri nintzen. Josetxo Azkona

Ni oso urduri jartzen ari nintzen eta **antxintxika** irteteko gogoa nuen, baina geratu egin nintzen, hura guztia nola amaitzen zen ikusteko jakinminez bainengoen. Juan Martin Elexpuru

Altxatu eta **antxintxika** aldegin zuen. Jasone Osoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antxintxika joan** (3)

---

antxintxikalari *iz* antxintxika lasterka egiten duen kirolaria.

Bai, Kubara gazterik heldu bazen ere, Koronela Bilbokoa da jaiotzez, eta **antxintxikalari** bikaina. Iñigo Aranbarri

---

antxintxike ik **antxintxika**.

---

antxintxiketan *adlag* aintxintxika, lasterka.

Joselu **antxintxiketan** abiatu zen aterantz. Josu Landa

Salbamendurako berebillak **antxintxiketan** hurbildu dozak bertara, eta elur karboniko edo dalakua inguruetan bota. Txillardegi

Milizianoekin ibilitakoak, abertzaleak eta ezkertiarrak Bizkai aldera joan ziren **antxintxiketan**, larrua salbatuko bazuten. Xabier Mendiguren Elizegi

---

antxintxinketan ik **antxintxiketan**

---

antxitxika ik **antxintxika**.

---

antxoa *(orobat **antxua** g.er.)* **1** hitza *iz* sardinaren itxurako arraina, baina hura baino txikiagoa, itsasoan sarda handietan bizi dena *(Engraulis encrasicholus).* ik **bokarta**.

San Gregoriotan, **antxoa** bere sasoi onetan.Antzerako zerbait gertatuko da produktu keztatuen (izokin, amuarrain, **antxoa**, bakailao, aingira, sardinzar, arraba, urdaiazpiko, hirugihar, gazta...) kontsumoarekin. Pello Zabala

Antxoa gutxiko eta **antxoarik** gabeko urte hauek zer pentsatua emango digute, agian, aspaldi gure itsasertzeraino gerturatzen zen arrainen tamaina, dibertsitate eta kopuruaz ahaztuta bagaude ere. Edorta Agirre

Ezkerreko eskuarekin ogiari eutsi eta eskubikoarekin **antxoa** jaten. Koldo Zuazo

Atzerriko **antxoa** erosten ez duten enpresak bestalako alternatiba bila ere badabiltza, Lauzirikaren hitzetan. Berria - Harian

Antxoa atzerrian erosi ez duten kontserba enpresak, atuna lantzen hasi dira antxoaren lanaldia behar zuen epean. Berria - Harian

Europako Batzordeak Bizkaiko Golkoan **antxoa** galzorian zegoela egiaztatu zuten ikertzaileek. Berria - Ekonomia

Gipuzkoako arrantzaleek frantziarrei egotzi diete Arcachongo akordioa bete ez eta astelehenean 130.000 kilo **antxoa** harrapatu izana. Berria - Ekonomia

Europar ministroek adostu dute, **antxoaren** arraintza martxoan irekitzea. Herria

Aurtengo **antxoaren** kosterak azken bi urteetako kanpaina txarrak ahaztarazi dizkie Gipuzkoako eta Bizkaiko arrantzaleei. Berria - Ekonomia

Hegoaldeko arrantzaleakureratu dira **antxoaren** arrantzarako, Orio, Getaria eta Donostiakoak. Herria

18 metro luze zituen, eta **antxoaren** kosteratik zetorrela hondoratu zen, Euskal Herritik zetorrela hain justu. Berria - Mundua

Zehaztu du hegaluzearen eta atunaren arrantzaldiak lana eman diela, baina ez duela **antxoaren** arrantzaldia konpentsatzen, "inondik inora". Berria - Harian

Hotz egiten zuen, logura asetzeko lekurik ez zuten ematen ontziko ertzek, hezetasunak hezurrak ere ximurtzen zituen eta, gainera, **antxoaren** ordez, berdel kilo merke batzuk baizik ez ziren agertu gau guztian. Hasier Etxeberria

Arrantzalea zain genuen beti, martxoak **antxoaren** itsasoko bideak noiz zabalduko. Pello Zabala

EBko Arrantza Kontseiluan **antxoaren** iraupenerako eta arrantzaren kudeaketarako plan baten alde egiteko galdegin dio Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari. Berria - Ekonomia

Atuna baldin bazen, turrun-hots bat; berdela edo txitxarroa, turrun bi; eta **antxoarekin**, hiru turrun-hots. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondoekin)

Antxoa txikia harrapatzen hasiz gero sekulako hondamendia etorriko dela diote. Berria - Ekonomia

Plater fin eta delikatuak prestatzeko ezin egokiagoak, mahai aberatsak are aberatsagoak egitekoak, eta horiekin batera sardina eta **antxoa** gazitua ugari. Felipe Juaristi

3 (hitz elkartuetan)

Antxoa arrantzaren gainetik, duela hamar urte finkatu akordioak behar dira berritu Urtats aintzin. Herria

Antxoa arrantzaldi bete-betean gaude eta orain ezin gara protestan hasi. Berria - Ekonomia

Gipuzkoako arrantzaleek frantziarrei egotzi diete Arcachongo akordioa bete ez eta astelehenean 130.000 kilo **antxoa** harrapatu izana. Berria - Ekonomia

Antxoa harrapaketak %85 jaistea "onartezina" da arrantzaleentzat. Berria - Harian

Merkatuan **antxoa** kontserba asko pilatzen dira. Berria - Harian

Antxoa kanpaina "hobea" izan dela azaldu du Tejedorrek. Berria - Ekonomia

Espainol estatuak bere **antxoa** kuotatik parte bat ematen dio Frantses estatuari, ordainez honek zapoa eta legatza kuota parte bat eskaintzen dio. Herria

Ameslari erraldoia, uraren gainean aharrausika ibil zitekeena, bostehun ogi eta **antxoa** xerra soilekin hamar jende ase zitzakeena. Itxaro Borda

Prusiako Urdinaren txartela urdinez zikindurik zegoen, Glizerinarenean hatzak itsasten ziren eta Arrain Olioarenak **antxoa**-kiratsa zuen. Juan Garzia

Nasa hutsik egoteak **antxoa** garaia esan nahi du, edo sardinarena, edo atunarena, Orain berton baditugu urdaiazpiko edota gazta zaporeko patata frijituak, **antxoa** gustuko olibak, oilasko zaporedun zopa begetariano hutsak, ganba gustuko arroz egosiak, etc. Koldo Izagirre

4 ***antxoa beltz*** *(corpusean ez dago; ETCn **250** agerraldi)*

Antxoa beltza edo bokarta beltza (Myctophidae) arrain mesopelagiko txikien familia da. ETC-entziklopedia

Arrainen barruko **Antxoa beltz** Myctophidae familian sailkatzen da. ETC-entziklopedia

5 ***antxoa gazitu***

Plater fin eta delikatuak prestatzeko ezin egokiagoak, mahai aberatsak are aberatsagoak egitekoak, eta horiekin batera sardina eta **antxoa gazitua** ugari, Bohemiako jende

printzipalentzako, frantsesen oro maitea baitzuten hauek. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antxoa bila (3); **antxoa ez** (3); **antxoa harrapaketak** (9); **antxoa harrapatu dituzte** (3); **antxoa harrapatzea** (3); **antxoa harrapatzeko** (4); **antxoa kanpaina** (4); **antxoa txikia** (3); **da antxoa** (5); **dute antxoa** (6); **kilo antxoa harrapatu** (3); **tona antxoa harrapatu** (3)

antxoaren arraintza (3); **antxoaren arrantzaldia** (3); **antxoaren gaineko debekua** (3); **dira antxoaren** (3)

antxoarik ez (7)

---

antxoakume *iz* antxoaren kumea.

Karnata moduan **antxoakumeak** ez, berdelkumeak erabiltzera behartuta daude arrantzaleak. Berria - Harian

---

antxotar *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi; orobat **antxoar** ETCn **2** agerraldi)* **1** *izlag/iz* Pasai Antxokoa, Pasai Antxori dagokiona; Pasai Antxoko biztanlea. ik **pasaitar**.

Handik urteetara jaso zen berrian zinema eman zuen astero **antxotarrek** merkatuaren aterpetzat baliatu zuten zimitorioan Osaba Felixek, elizak lur jotako herrian santujaleek indarrik ez "Bekatua!" orroka hasteko. ETC-prentsa

Udalbatza honetan, beste puntu batzuen artean, orduan espetxeratua zegoen Imanol Iparragirre preso politiko **antxotarraren** gaia zegoen aztertzeko, garai haietan Imanol bere eskubideen alde borrokan aurkitzen zen espetxean, gose greban alegia, beste euskal preso askorekin batera. ETC-prentsa

2015eko maiatzean **antxotarrek** Ibaiondo pilotalekuaren estreinaldian ere omendu zuten. ETC-entziklopedia

2 ***pasai antxoar*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* ik **pasai antxotar**.

Olerkietan, lehen saria Haritz Casabal **Pasai-Antxoarrari** ("Infernutik zerura"), bigarrena Irati Gaztelumendi oiartzuarrari ("Urrundu gaituzten gauza guztiengatik") eta hirugarrena Ainhoa Larunbe olaiztarrari ("Ni, zu... eta besteak"). ETC-prentsa

Eginez ikasten dela eta ez dela nehoiz erortzera utzi behar erranez hurbildu zitzaien Kontxita Beitia, 77 urteko **pasai antxoarra**. ETC-prentsa

3 ***pasai antxotar*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aitor Oteiza **Pasai Antxotarrak** ipar Euskal Herrian eta Pirineotan pasa ditu bere oporretako hainbat egun eta Euskal Herrian zein bere mugetatik kanpora ez du inolako oztoporik topatu EHNA erabiltzeko. ETC-prentsa

---

antxu *iz* urtebeteko arkume edo aharia.

Ondoko pentze batean alhan ari ziren **antxu** talde batetako zenbait, hagun harek lilluraturik behar bada, lasterka sartu dira urean eta bertze 40 bat heier segi ito dira. Herria

---

antxua ik **antxoa**.

---

antxumatu, antxuma(tu), antxumatzen **1** du *ad* besoez edo hankez mintzatuz, bata bestearen gainean jarri.

Lan-mahaiaren gainean besoak **antxumatu** eta negar egin nuen. Jesus Mari Mendizabal

"Jaungoikoak bakarrik egin lezake zerbait gure bizitzan", dio besoak **antxumatzen** dituela. Gotzon Garate

Gorputza zuzendu du bat-batean, eta jarraian jakaren papar-hegalak goratu eta besoak **antxumatu** ditu. Pello Lizarralde

Besoak **antxumatuak** ditu, eskuak besapean sartuak, eta etengabe mugitzen ditu oinak, izoztuak balitu bezala. Pello Lizarralde

Besoak bularrean **antxumatuak** zeuzkan. Gotzon Garate

Besoak **antxumatuta**, atalburuan zutik, itxoiten ikusi nuen komisarioa. Joxean Agirre

Leihoak itxi, eskutitzak ekarri, mantekin ni estali eta berriz ohe ertzean eseri zen, besoak **antxumatuta**, Benetan, nahiago besoak **antxumatuta** egon. Ander Irizar

Atetik hurbil, Pedro Páramok besoak **antxumaturik** itxaroten zuen; ber-bertan, Valencia doktorea, eta haien ondoan beste jaun batzuk. Juan Garzia

Inspektoreordea, zutik, besoak aulki baten bizkarrean **antxumatuta**, zuzen-zuzen begira daukazu. Rafa Egiguren

Mutil gazte bat dago zutik eta besoak **antxumatuta** larrainaren ertzeko intxaurrondoaren azpian. Pello Lizarralde

Azkenik, kalearen erdian, iturrietatik hurbil, Gavard topatzen zuen, mahuka hutsik, besoak mantal urdinaren bularrekoaren gainean **antxumaturik**, bere dendaren aurrean hitzaldia esaten. Karlos Zabala

Ez zuen ezer esan: matrail hezurrak estutu eta, besoak **antxumatuz**, begira geratu zen. Koldo Biguri

Tripulazioko kideak besoak popako petril metalikoan **antxumatuta** agertzen ziren, aurpegi nekatuekin, argazkiaren zuri-beltzak berunezko egiten zuen zeruaren pean. Harkaitz Cano

2 (era burutua izenondo gisa)

Bizkarra aitzinatuz, bi ukalondoak mahai gainean tinkatu zituen, eta kokotsa, pikorrak aienatuak zitzaizkion kokots hori, bi esku **antxumatuen** gainean paratu. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

besoak antxumatu zituen (4)

besoak antxumaturik (8)

besoak antxumatuta (11)

besoak antxumatzen (3)

---

antxume *iz* ahuntzaren umea, amaren esneaz elikatzen den bitartean.

Zenbaitek, tenkatuaren tenkatuaz, urraturik zeuzkaten **antxume**-larruzko eskuzorroak. Jose Morales

Kanpo alde hartan, errepide azpiko tunelaren inguruan, azienda zegoen salgai: zekorrak, ardiak, ahariak, txahalak, **antxumeak**, zaldi pare bat, asto umil bat: Txillardegi

Ikastetxeak dragoi erraldoia ematen zuen, goizeko zortzietan irentsitako haurreria orain arratsaldeko bostetan goragalez oka botatzen, mutikoak **antxume** askatu berriak lez dragoiaren ahotik saldoka eta zalapartarekin irteten. Joseba Sarrionandia

Manoahek, **antxumea** eta labore-eskaintza harturik, erre-oparia eskaini zion haitz baten gainean bere egintzetan misteriotsua den Jaunari. Manoah eta emaztea begira gelditu ziren. Elizen arteko biblia

Bakarrik geratutako **antxumeen** ipuin hartan bezala, bederantzi **antxume**, eta otso gorri bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez dago batere adostasunik pirata honi **antxumearen** izena (Kid) ezartzeko arrazoiari buruz. Juan Garzia

Ellen **antxume**-larruzko bere eskularru berrien erpuru urratua hatz erakusleaz igurtzitzen ari zen, urduri. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
antxume bat (14); **antxume larruzko** (5)
ez egosi antxumerik (3)

---

antxumeki *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* antxumearen haragia.

'Caldereta' edo arkume okelaz egindako eltzekaria; edo, halakorik ezean, **antxumekiaz** gertatutakoa, eta bere gibelaz sueztitua. ETC-prentsa

---

antz **1** *iz* agertzen dituzten tasun edo ezaugarri berdin edo berdintsuengatik, izaki bi edo gehiagoren artean gertatzen den lotura. ik **eite**.

Berori Jainkozko ulermenarekin konparatu izan da, hori inolako bitartekorik gabe ari delako, lehen begiraldiko **antz** hori egiaz gertatzen ez den arren. Xabier Kintana

Nik jakin nahi nuke ea **antz** hori nondik heldu zaien, atributu mota biak besarkatzen duen definizio berean sartzeko, haiek uste dutenez. Xabier Kintana

Gauza baten eta gauza hori irudikatzen duen objektuaren arteko antzaren kontua bazter-kontua da, beraz, erabat, harentzat, ez baita nahitaezkoa a priori **antz** horrek erabaki horretan parte izan behar duenik. Josu Zabaleta

Haren aurpegia zeharo arrunta zen, agure zimel askorenaren **antz-antzekoa**. Jose Morales

Maitasun sendoak urre garbiaren **antza** du. Joan Mari Lekuona

"Lauaxetaren **antza** dik benetan", esan nion neure buruari: 30 urte inguruko gazte lerden bat, pipiolo itxura erabatekoa behetik hasita goraino. Juan Luis Zabala

Elizabethen **antza** eman zion Nathanielek Bostongo inprimategi txiki batean, artean tinta-usainaz, pilaturik zegoen bere nobelako Hester Prynneri ere. Anjel Lertxundi

Asimilazioa da hots bat INGURUNEARI egokitzea ingurune horrekiko **antza** areagotuz. Lourdes Oñederra

Jakizu, berez, **antza** gauza biren arteko nolabaiteko harremana dela eta berau onartezina denean, ez dagoela bien arteko kidetasunik, ez eta **antzik** ere. Egin dezagun gizakia geure **antz** eta irudira. Xabier Kintana

Bi gauzatan bazuen behintzat emakume hark bere **antza**: kafezalea zen eta arropatako patrikak edozer garraiatzeko erabiltzen zituen, berak ohi zuen bezala. Harkaitz Cano

Ikaragarria da zuen bion arteko **antza**. Iñaki Mendiguren

Era berean Harengan baztertu behar da, halaber, diren izakiekiko **antz** guztia, orok dakitenez eta Profeten liburuetan argiro erakutsi denez, hitz hauekin: [...]. Xabier Kintana

Galderak egiten dizkion ispilu baten **antza** du idazle batentzat paper zuriak edo ordenagailuaren pantailak. Anjel Lertxundi

Arrazoiz merezi izan zuen haren **antza** gorputzean ere agerian eramatea! Askoren artean

Horrela, esaterako, ziape garauak eta izarren esferak, biek hiru dimentsio dituztelako, elkarren **antza** dute, azken hori izugarri handia eta bestea guztiz ttikia izan arren, dimentsioen existentziaren ideia berbera dutelako bietan. Xabier Kintana

ADNaren kate osagarri biek elkar ezagutzeko eta espezifikoki elkarrekin uztartzeko duten gaitasunari esker, erraz samarra da aztertzea, organismoak guztira daukan ADNaren artean, ea baden generik gene ezagun baten **antza** duenik. Juan Garzia

Ez Sergiok eta Anderrek elkarren **antza** zutelako, batere antzik ez zutelako baizik, bataren zein bestearen gorputzek eredu estetiko antagonikoei erantzungo baliete bezala. Joan Mari Irigoien

Batzuk buruz behera zeuden itsatsita eta bertan ageri ziren boxeolariek pertxa batetik zintzilik jarritako saguzar erraldoien **antza** zuten. Harkaitz Cano

Gizarte batzuek berebiziko garrantzia ematen diete elkarren **antza** duten irudiei. Josu Zabaleta

Alde batera, **antza** zeukan Virginiarekin. Bernardo Atxaga

Orduan ordezkari sindikalek eskaleen **antza** edukitzen zuten euren bizar zabar, trikota ilun eta praka zaharkituekin. Hasier Etxeberria

Denborarekin jabeek beren zakurren **antza** hartzen dute, edo alderantziz, igualtsu da. Harkaitz Cano

Landa burrunbatsu baten **antza** zeukan hark guztiak. Karlos Zabala

Muker egin zion neskameak, etxeko alaba agidanez, tabernariaren **antza** bekainetan. Koldo Izagirre

Erreguka hasten haizenean nire amaren **antza** hartzen dinat. Harkaitz Cano

Rantxoaren behealdean, zuhaitzak eta granitozko harkaitzak elkarren **antza** hartuz zihoazen. Bernardo Atxaga

Nahi duanaren **antza** hartzen ditek, liburutegiena, behatokiena, usategiena, kuartelena; baina, ziur aski, inork ere ez dik guztiz sinesten Jainko ona hor barruan bizi denik. Karlos Zabala

Hitzek diskurtsoa osatzen dutelako hartu zuen urte hasieran Bilboko jaun mera Azkunak Frantziako Barne ministro Sarkozyren sabel-anaiaren **antza**. Iñigo Aranbarri

Harryk euritako beltz zimurtu baten **antza** hartu zion. Iñaki Mendiguren

Aitonaren **antza** hartzen nion. lege horiek lege fiskalen **antza** hartu zuten, politiko eta zibilen **antza** baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

Agian basamortuko Gurasoen Apotegmen antzeko historia izan zuten, horien **antza** baitute forman nahiz edukian. Askoren artean

Arrain saltzaileak ziren; zaharrena liluragarria zen; gazteak ur gezatako arraina saltzen zuen eta Murilloren ama birjina baten **antza** zuen, horail-horaila, bere zamo eta aingiren artean. Karlos Zabala

Giroa oso neutroa zen, eta bazuen **antza** zure ume jaioberria kristal batzuen gibeletik ikustera joaten zaren gela horiekin. Pello Salaburu

Hannarekin izan zezakeen **antza**, neskatxaren eta bion arteko harremana zenbat eta aurrerago, orduan eta bakanago etorri ohi zitzaidan gogora. Joxe Austin Arrieta

Ikusiko da hortaz nolako **antza** zuen nire arrazoimenak, hutsalkeriek bere orekatik aterarazten zutelarik, Ptolomeo Hefaistok aipatzen duen itsas harkaitz harena. Koro Navarro

Agian ez izugarrizko **antza**, baina bai behintzat halako eite bat. Iban Zaldua

Lengoaia hau beste mundu batekoa izango da, hitz hauek itzulezinak izango dira, idiolekto honek itzelezko **antza** izango du isiltasunarena. Joseba Sarrionandia

Horretan badu Aladro jaunaren nolabaiteko **antza**: parke batean deserriratutako bi printze dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Piet Mondrianen margolanen nolabaiteko **antza** zuten irudi abstraktu horiek, eta, horregatik, "koloretako mondrianak" deitu zien Landek. Xabier Olarra

Gehienetan sugestio hutsez hartzen ditugu **antzak**, esaterako, bi gizon aita-semeak direla dakigunean, alegia, aldez aurretiko informazioak eraginak izaten direla analogia asko. Ramon Saizarbitoria

Bien aurpegieren **antzak** ez zidan okerrerako biderik eman: aita-alabak nituen inondik ere. Anjel Lertxundi

Aspektu hauek guztiak konbinatuta, egoki sailkatuko genituzke egun modu askotan dabiltzan diskurtsoak, eta agerian geratuko lirateke elkarren **antzak** eta aldeak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gabin zur eta lur geratu zen laguna, doi barandilla ondora iritsi orduko, neskari grabatugintzaren eta berak behin eta berriz saiatutako kalekaritzaren arteko **antzak** azaltzen hasi zitzaionean Hortik aurrera, **antzak** lurrindu egiten dira: lurreko gauzei lotuago eta konkretuago da betiere Txirrita, espiritualago eta abstraktuago Txikia; hizkera ere garbizaleagoa du honek, ustez jasoagoa ere bai, olerkari bati dagokion moduan. Iñaki Iñurrieta

Lehen ere ikusi dugu analogiaren kontzeptua, irudiaren eta errealitatearen arteko **antzaren** arazoa. Josu Zabaleta

Polikleto hura bezala, zeinek, "giza irudiari egiaz gaindiko grazia eman zion", edertasuna **antzaren** izenean sakrifikatu gabe. Bernardo Atxaga

Irudi analogikoak, beraz, berezko **antzaren** imitazioa eta gizartean komunika daitezkeen zeinu-sorkuntza proportzio aldakorretan nahastuz gizakiak egindako sorkariak izan dira beti. Josu Zabaleta

Gauza baten eta gauza hori irudikatzen duen objektuaren arteko **antzaren** kontua bazter-kontua da, beraz, erabat, harentzat, ez baita nahitaezkoa a priori antz horrek erabaki horretan parte izan behar duenik. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Pentsatu nuen elkarren **antz** fisikoa zutela. Bernardo Atxaga

Errima errebesaren kontura, **antz** fonikoak ideien asoziazioa ekartzen du berekin, eta egilea inoizka argumentu logikoak -sinpleak batzuetan, korapilatsuak beste batzuetan- eraiki beharrean dago, igorri nahi digun mezua ulertuko badugu. Iñaki Arranz

Aipatzekoa da, bide batez, ideia honen eta zineman edota, neurri batean bederen, pinturan ere, eremuz kanpokoaren posibilitatea gertagarri egiten duen uste analogoaren artean dagoen **antz** harrigarria. Josu Zabaleta

Tamalez, ordea, egunak aurrera zihoazen eta **antz** etsigarria zuten batak bestearena. Josu Zabaleta

Ez dago **antz** handirik, esate baterako, Courbet-ek XIX. mendearen erdialdean erreibindikatzen zuen errealismoaren, Sobiet Batasunean urte luzetan nagusi izan zen "errealismo sozialistaren", Italiako zinemagintzan 1945etik aurrera zabaldu zen "neorrealismoaren" eta XVII-XVIII. mendeetako holandar pinturaren inoiz aipatu izan den "errealismoaren" artean. Josu Zabaleta

Neure biziak ere, gero eta **antza** haundiagoa dizu, harri hutsezko pareta erdiurratu horiena. Patziku Perurena

Erabat frogaturik gelditzen da Hari egozten zaizkion atributuen eta guri aitortzen zaizkigunen artean ez dela batere esangura-kidetasunik, eta **antz** bakarra izenarena dela, eta ez deus besterik. Xabier Kintana

Horregatik dute halako **antza** jokaera nazionalista batzuek erlijio fenomenoekin. Bernardo Atxaga

Bestelako definizio batzuk ere bilatu izan ziren, bai zinemak musikarekin izan zezakeen antzean, aski **antz** zalantzagarria bestalde. Josu Zabaleta

Txitxikovek beste begiratu bat eman zion gelari, eta han zegoen guztia irmoa eta ezinago zakarra zen, eta etxeko jaunaren **antz** ikaragarri handia zuen. Jose Morales

Frantzisko, beraz, aberaskumea da, nahiz eta haren izaerak **antz** gutxi duen aitarenarekin. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jainkoak ez du gogoko irudipenaren **antz**-bideekin jokatzea. Joan Mari Lekuona

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nik, auskalo zergatik, folklore sabindar xuriak ugaldu ote zuen sumatzen baitut, eta aurreragoko usarioa eskas **antza**, kontestu gehienetan. Patziku Perurena

Agindu nion don Alejandrok gonbidatuko zuela Biltzarraren partaide izatera; lauso-**antza** ihardetsi zidan interesa zukeela hemisferio australa bisitatzeko eta bere lehengusu bat, dentista bera, Tasmanian bizitzen jarria zela. Juan Garzia

Han hartu nian nik min, eta bizitza osoan bota diat ezker pausoa oker-**antza**, baina ez nauk damutzen. Pako Aristi

Begi grisak zituen, eta bixar xerrenda beltza zeukan ezpain gainean, ile-adatsa noizbait gorri-**antza** izandakoa, motots bildu koloregaldu bat eginik zeukan buru gainean, denbora motots hura garbitzez ahaztu balitz bezala gelditua. Xabier Olarra

Han daude erro zuriak, hain zuri non kolorearen kontrasteak indar izugarriaren itxura ematen baitie, eta ezuste-**antza** bezalako bat dute, hala esaterik badago, gauetik goizera sortu bailiran, hazi-ereilea, nekearen nekez, lo gelditu zen bitartean. Jon Alonso

Irribarre ezti **antza** egin zidan. Aingeru Epaltza

Ordainean, banuen harendako informazio balios **antza**. Aingeru Epaltza

Irudi-**antzak** ez du, printzipioz behintzat, erabateko ilusiorik eragiten, ilusio partzial bat baizik, funtzionala izateko bezain indartsua bada ere Ezagun-**antza** hartu zioten istorio hari, bera ere aski larri ibilia baitzen ebakuntza ostean. Josu Zabaleta

"Nora doa hori?" galdetu zuen, zakar **antza**. Pablo Sastre

Kendu nahirik atzaparka ari zen baina, ez zion eman nahi bizarginak; emateko esan zion lizentziadunak, harrezkero ez zutela eta itxura-antza haren beharrik izango, eta, gezur-**antzak** utzita, bere egiazko aurpegia erakusteko. Patxi Ezkiaga

Gizon bikainak, pentsatu zuen jeneralak: munduarekin bat egiten ez ziren gizon bakarti **antzak**; burgoiak ziren, sinesten zuten honetan edo hartan, ohorean, gizakien bertuteetan, diskrezioan, bakardadean, emandako hitzean, eta baita emakumeengan ere. Xabier Olarra

5 irudia; itxura. ik **antzirudi**.

6 ***antz-antzeko***

Haren aurpegia zeharo arrunta zen, agure zimel askorenaren **antz-antzekoa**. Jose Morales

Plauto, Karakala, Seneka eta bertze hainbertze-, hala, bertze izen haiek aditu orduko, ezin egokiagoak iduritu zitzaizkidan osaba Joanikoten listari eratxikitzeko, zeren **antz-antzekoak** baitziren. Joan Mari Irigoien

7 ***antza denez*** dirudienez.

Antza denez, gaia bera irrigarri gertatu zitzaion zenbait entzuleri. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Antza denez, gerra-zaurien eraginez hil da Frantzian. Mirentxu Larrañaga

Antza denez, bederatzi tren galdu ditut dagoeneko. Antton Olano

Antza denez, antzinako latina egokia da bertan azterbide analitikoarekin lan egiteko. Isabel Arrigain

Aipatu berri dugun azalpenari sarrera egiterakoan, auhen-kantari afrikarren adibidea ekarri zuen gogora Zumthorrek, ez baitira, **antza denez**, beren poemak egiazko hiletetatik kanpo errepikatzeko gai. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Handik denboraldi batera, zilindrozko fonografoaren asmatzaileei eskaini zien koadroa, Edison-Bell-i, baina **antza denez**, hauek ez zuten erosteko asmorik azaldu. Iñigo Aranbarri

Algy, hi betiko moduan, **antza denez**; jan eta jan! Antton Olano

Harro-harro nengoen hartaz -harroegi, **antza denez**-. Mirentxu Larrañaga

Tira, **antza denez**, sare horrek Reichetik ateratako isilpeko informazioa jaso, antolatu eta Ingalaterrara bidaltzen dik. Alberto Ladron Arana

8 *antz eman* ik **antzeman**.

9 ***antza zenez*** zirudienez.

Ezagun zuen lasaitu ederra hartua zuela: **antza zenez**, ez zegoen oso seguru nire erantzunaz. Alberto Ladron Arana

10 ***antzik ez eman***

- Emakumezkoa, Elizaveta Vorovia, izenaren amaierako a **antzik ez emateko** moduan idatzirik. Jose Morales

11 ***garbi-antz*** *izond*

Ingurua **garbiantza** edukitzea gustatu izandu zait beti. Patziku Perurena

12 ***hotx antzean*** *adkor* hotz antzean.

Buenos días y Feliz Pascua -erantzun nion **hotx** antzean. Txillardegi

13 ***hotz antz*** *izond*

Harrera **hotz** antzaren kontuaz nuen ikuspuntua ulertarazteko eginahalak egin nituen. Fernando Rey

· **Hotz** antzean zegoen, oso suminkor, gogoetatsu. Fernando Rey

14 ***itxura antzean*** *(orobat **itxurantzean**) adlag* ik **itxuran**.

Gure etxea **itxura antzean** gobernatzen saiatzen naiz -ihardesten zion zorrotz emazteak-. Mirentxu Larrañaga

Indartsu dagoen nola dakien galdetu diogu: «Bueno, Azpeitia inguruko mendateetan denborak eta bihotz taupada erritmoak ditut hartuta: Errezil, Beizama, Mandubia; **itxura antzean** ibili naiz han». Berria - Kirola

Erdoziak **itxurantzean** jardun zuela adierazi zuen saioaren amaieran, baina ez erabat gustura. Berria - Kirola

15 ***lasai antzean*** lasai edo.

Egunak **lasai antzean** igaro ziren. Felipe Juaristi

Egun hartan **lasai antzean** zihoazen kontuak. Unai Iturriaga

Baina behin honuzkero **lasai antzean** uste dut esan litekeela badela edo izan litekeela munduan zoriontsu izatea baino zori hoberik. Iñaki Segurola

Une batez patxadan egon zen, **lasai antzean,** baina luze gabe mesfidantza eta aldarte txarra nagusitu zitzaizkion. Patxi Zubizarreta

Horra hor, bada, Mikel Strogoff, hiriaren alde batetik bestera, gaua igarotzeko aterpe baten bila, **lasai antzean**. Karlos Zabala

16 *merke antzean*

Kalezuloan denek ala denek zekiten Buxi doktoreak oso prezio neurritsuak zituela, eta **merke antzean** erosten zituen hortzeriak prezio onean saltzen zituela berriz. Patxi Zubizarreta

Gasolindegiko ugazabak saldu zion **merke antzean**, hark Ford berri bat erosi behar zuela eta. Xabier Montoia

Hala ere biolina erosi zuen, musikari zion zaletasunagatik batez ere, **merke antzean** gainera. Felipe Juaristi

Familian papertegia zeukan Aristegi izeneko ikaskide batek ekarri zigun papera, **merke antzean**. Xabier Mendiguren Elizegi

Akzioko 1,8 euroko mozkina du ordea eta, 19,33 eurotan, **merke antzean** dago. Berria - Ekonomia

17 ***motel-antz*** *(corpusean* ***motelantz*** *soilik) izond* **ik gorago 5**.

Handik egun batzuetara, lizarrostoa idortuxetzen zenean, eta eguraldi **motelantza** izan, nik behetik eman ahalean aitak pilatzen zituen lizar zatukak bordako gaindegian. Patziku Perurena

18 *taxu antzean*

Ez dugu modurik, esate baterako, **taxu-antzean** irudikatzeko, ezta arrastorik ere, euli baten, edo zizare baten, edo kaio baten mundua. Juan Garzia

-Bi gauza behar dira gaur egun katedra baten jabe egiteko: arrantza **taxu antzean** egiten jakitea, eta hiru boto. Joxerra Garzia

19 ***tupust antzean*** bat-batean.

1960aren hasieran erabaki zuen -hogeita bost urte zituela, beraz-, **tupust** antzean baina nahiko ongi pentsatuta, bere lana uztea, mundua ikustea eta bidaia-ontzi batean sukaldaritzan lan egitea. Xabier Olarra

Halako batean, euliak **tupust** egingo zuela bere begien edo ezpainen kontra. Unai Elorriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren antz handia (3); **amaren antz handia** (3); **antz antzeko** (4); **antz antzekoa da** (3); **antz antzekoak** (7); **antz eman nion** (4); **antz eman zion** (6); **antz emateko** (6); **antz ematen** (9); **antz eta irudikoa** (3); **antz eta irudira** (4); **antz gehiago du** (3); **antz gutxi** (7); **antz handia du** (12); **antz handia duen** (6); **antz handia dute** (9); **antz handia duten** (3); **antz handia hartzen** (4); **antz handia izango** (3); **antz handia zuela** (6); **antz handia zuen** (8); **antz handia zuten** (3); **antz handiago** (4); **antz handiagoa dauka** (4); **antz handiagoa du** (15); **antz handiagoa duela** (4); **antz handiagoa dute** (4); **antz handiagoa hartu** (3); **antz handiagoa hartzen** (5); **antz handiagoa izan** (4); **antz handiagoa zeukan** (3); **antz handiagoa zuen** (9); **antz handiegia hartu** (3); **antz handiena** (3); **antz handirik ez** (3); **antz harrigarria** (3); **antz hori** (6); **antz ikaragarria** (10); **antz irudira** (4); **antz izugarria zuen** (3); **antz pixka bat** (15); **antz pixkat** (3); **artean antz** (3); **arteko antz** (4); **baina antz** (3); **baino antz** (3); **baten antz handia** (4); **baten antz handiagoa** (10); **berehala antz eman** (3); **elkarren antz handia** (5); **ere antz** (4); **gero eta antz** (12); **haien antz** (3); **haren antz** (6); **horrek antz** (4); **horren antz** (3); **ren antz** (4); **zuen antz** (5); **zure antz** (3)

duen antzagatik (3)

antzak eta aldeak (3); **arteko antzak** (4)

aitaren antzik (3); **antzik batere ez** (4); **antzik emango** (5); **antzik ematen** (7); **antzik ere ematen** (6); **antzik ere ez** (13); **antzik ez du** (3); **antzik ez duelako** (3); **antzik ez duen** (5); **antzik ez duten** (3); **antzik ez zuen** (5); **antzik ezin** (3); **antzik handiena** (12); **antzik izan** (3); **antzik izango** (4); **antzik txikiena ere** (7); **baten antzik** (7); **batere antzik ez** (5); **du batere antzik** (3); **elkarren antzik ez** (3); **ez diot antzik** (4); **ez du antzik** (10); **ez zuen antzik** (3); **ezer ezagunen antzik** (3); **ezeren antzik ez** (3); **ezin antzik eman** (4); **ezta antzik ere** (3); **haien antzik** (3); **haren antzik** (6); **inolako antzik ez** (4); **inongo antzik** (4); **izan lezakeen antzik** (3); **lezakeen antzik txikiena** (3); **zion antzik** (4); **zure antzik** (3)

---

antza 1 *adlag* dirudienez, zurudienez.

Antza, gerrak ez dira fenomeno historikoak, baizik naturalak; eta gerren kausak patologia arrazialekoak dira, ez historiko-sozial edo politikoak. Joxe Azurmendi

Antza, horrek ematen zien gero edukin sendoa, eta batez ere landua, jasoa, goratua eta zaindua, hizkuntzaren inguruko eduki guztiei. Pello Salaburu

Antza, buruan zebilzkion asmoak, kalkuluak eta oldozpenak oso atseginak ziren, zeren irribarre gozo baten aztarna uzten baitzioten behin eta berriro aurpegian. Jose Morales

Antza, mutil gazte lizun batek egun batez emakume xarmant eta airos bat ikusi zuen. Patxi Zubizarreta

Antza, hiztegia egin duenak ez zuen gure amamarekin txintxonean ibiltzeko aukerarik izan, bestela jakinen zuen Tximinoa izan dela beti karta hori. Hasier Etxeberria

Antza, haien etorreraren berria beraien aurretik iritsi zen: berehala onartu zituzten, isilik eta galderarik gabe. Agustin Otsoa

Antza, laster aski ikasi zuen herrialde hartan bi dialekto zeudela: lingala eta munikutuba. Pablo Sastre

-**Antza**, gustura aritzen zara kantuan -esan zuen emakumeak-. Mirentxu Larrañaga

"Handi" ez baita, **antza**, aski handi. Joxerra Garzia

Emakumea, **antza**, ez da ezertaz jabetu. Anjel Lertxundi

Kokaleku gehienak, **antza**, sakonune biribil edo eliptikoak dira, baina badira batzuk konplikatuagoak. Irene Aldasoro

Ezin izan zuen, **antza**, zama handiago hari ihes egin. Arantxa Iturbe

Italian sekula ez da, **antza**, idazle burusoilik, ile beltzik, ile gorririk egon. Anjel Lertxundi

Bada, **antza**, uso baten gibela dut, eta behazuna falta laidoa mingosteko. Juan Garzia

Ez du, **antza**, deus entzuten. Koldo Izagirre

Ez zen, **antza**, tarte luzea izan, inork egoera kezkagarri hartan ikusi baino lehen itzuli bainintzen neure onera, Orain ez, **antza**, orain dena da zilegi eta lehen kontraesana zena, aurrerapenaren azalez jantzita dabil. Juan Luis Zabala

Atea zaintzen zuen belzkotea, Txomin izenekoa, **antza**, bermeotarra omen zen. Jon Alonso

Bien arteko elkarrizketa gogotsua, **antza**, estetika kontuei zegoen loturik. Xabier Olarra

Buruz ikasitakoa ahazteko beldurra dauka, **antza**, eta nireari jaramonik egiteke jarraitu du. Koldo Izagirre

Denbora asko neraman orri-pasa, eta liburua zarpailduko niola pentsatzen ari zen, **antza**, gizona. Anjel Lertxundi

Adak igerri egiten zuen, **antza**, Danelek su zaharrak berritu nahi zituela, eta ahalegin guztiak egiten ari zen txingar zaharrik ez hauspotzeko. Anjel Lertxundi

Harri zahar haiek neure eriez ukitzean, eroturik **antza**, mirari batez agian mintzatuko zitzaizkidan esperantzatan itxura zenez. Txillardegi

Prostatako minbizia zeukala uste zuen, eta ez zuen hil nahi, **antza**, nik hura jakin gabe. Koldo Izagirre

Paretetan iltze herdoildu batzuk josirik zeuden: alferrikakoak, **antza**, zenbait, eta beste zenbait, berriz, orri horixkatu batzuei eutsiz. Juan Garzia

Inork ez zion, **antza**, isilik egoteko eskubidea zuela jakinarazi. Joxerra Garzia

Berak ez zeukan bere burua militartzat, **antza**, infanteriako lotinanta zen arren. Koldo Izagirre

Analisi molekularraren emaitzen arabera, espezie berrien sorbidea ez da, **antza**, bestelako gene eta bestelako funtzio berriak gehitzea, besterik gabe, organismo zaharragoak hortik gara daitezen. Juan Garzia

Baina une horretantxe, **antza**, patuak Txitxikovez errukitzea erabaki zuen. Jose Morales

Labanaz eraso zion, **antza**, emazte zenari. Iñigo Aranbarri

Aurreko egunean Potzolorekin izandako elkarrizketaren oihartzunen bat gelditzen zitzaidan, **antza**, kasko barnean. Aingeru Epaltza

Zaratak, **antza**, kanpoko harresiaren atzeko patiotik zetozen une hartan. Agustin Otsoa

Informazioa baino, txingarra mantentzea da, **antza**, kontua. Iñigo Aranbarri

Eta bitxitzat dute taldean ibili gura ez izatea, ez baldin bada atzoko lagunarekin geratu delako ze, **antza**, amesgaiztoetan lagunaren izentzat hartu duten zeurea ahoskatu ei du behin baino gehiagotan. Patxi Zubizarreta

Nondik-nahiko ekaizteen erasoa sufrituagatik ere, sustrai amorratuak gero eta lurminago barneratzen dituen landare temati eta bakarzaletzat dauka Perurenak, **antza**, bere burua. Patziku Perurena

Fonsecak ipinitako epeak zertarako eman zezakeen neurtzen ari zela zirudien Mentxuk, baina indar biltze saioa baino ez zen izan, **antza**, itaundu aurretik: [...]. Josu Landa

Gogorregia egin zaio, **antza**; ezin zuen gehiago. Juan Kruz Igerabide

Nahikoa, **antza**. Bernardo Atxaga

Senarra periodiko atzean dago ezkutatuta, haserre samar eta gogaitua, **antza**. Xabier Mendiguren Elizegi

Atzera egin zuen, bizkarrarekin fatxada ukitzeraino; perspektiba izateko, **antza**. Ramon Saizarbitoria

Browne jaunak, hala ere, ez zuen ulertu, **antza**. Irene Aldasoro

Orpoz orpo zerraikion Eustasio Amilibia Donostiako alkatea, are motelago, erabat akiturik **antza**. Txillardegi

Marraztean ere ez zen bere gaian kontzentratzen Stephen, **antza**. Xabier Olarra

"Gerrako denborak gogoratzera" hari eman zion erantzun murritzak ez zuen, noski, txoferraren jakin-mina ase; alderantziz, **antza**. Ramon Saizarbitoria

Tik eta klik horiek hartzen zioten denboraren heren bat, eta, eginbehar hori, **antza**, ezin zuen saihestu. Xabier Olarra

Egin zizkioten testek agerian jartzen zuten, **antza**, emozio eta adimen arloan zituen akatsen larria. Xabier Olarra

Kolorearen ikusmenak, **antza** -ikusmen primarioaren beste prozesu batzuek bezala: mugimendua, sakontasuna eta forma pertzibitzekoak, esaterako-, ez zuen lehenagoko ezagupenik eskatzen, ez zen ikasiaren edo esperientziaren araberakoa. Xabier Olarra

Mendekua hartu nahian zebiltzan, **antza**. Patxi Zubizarreta

Beste honako hau ere ez nekien nik: Joachim 1935 urtetik aurrera gogotik aritu zela itsas haraindirako emigrazio-baimena lortu nahian, Johannarengandik banandu beharrik ez izateko, edozertarako prest baitzegoen, **antza**. Joxe Austin Arrieta

Baina mutila erne eta susperturik zegoen, **antza**. Karlos Zabala

2 (izenondo gisa)

Halako batzuei abuztuan bisita egitean, era askotako umeak ikusi nituen: batzuk argiak, beste batzuk atzeratu **antzak**, irekiak zein lotsatiak, nork bere nortasun berezia zutenak. Xabier Olarra

3 ***antza denez***

Antza denez, erronka botatzea erabaki zuen lehen ministroak atzo, koalizio gobernuko kide "gogorrekin» ituna egiteko saioek porrot egin ondoren. Berria - Mundua

Munizio alemaniarra da, eta, **antza denez**, "erraz lor daitekeena». Berria - Euskal Herria

Antza denez, norbaitek eraso egin dio: ubeldu batzuk ikusi dizkiogu bizkarrean, ezer larririk ez, baina erortzean edo erasotzaileak eginak izango dira. Antton Olano

Jendetasuna, funtsean, animalia sineskor izatetik datorkigu, **antza denez**, eta egun areago, emakumea gizonari sinesten erakusten honen serio hasi zaionetik. Patziku Perurena

Sexuen arteko berdintasuna baino, Portalisen esana desberdintasunaren errekatik dator (honetan ere, Napoleonen ustea, **antza denez**, eragingarri), eta horren indarrez ere, aita familiakoaren ahalgo nagusi eta gailenaren aldetik. Andres Urrutia

Antza denez, nolabaiteko erantzukizuna sentitu du nirekiko, eta anfitrioi lana ahalik eta ondoen betetzen saiatu da. Jon Arretxe

Antza denez, hiru lagun hil ziren Brasilgo selekzioaren partiduan edo inauterietako ekitaldi jendetsu batean. Unai Elorriaga

Tiro bat entzun zen: baina Malacartek airera bota zuen, **antza denez**, beldurrarazteko bakarrik. Josu Zabaleta

Antza denez, esandakoa baino pixka bat gehiago zekien beti. Lutxo Egia

Kezkatzekoa da nola harritzen garen berandu heltzeagatik, baina **antza denez**, zail zaigu beste era batean ibiltzea. Iñigo Aranbarri

Eta, **antza denez**, zu ere berdin zaude. Aitor Arana

4 ***antza eduki***

"Osaba Lazaroren **antza daukak**", esaten zidan aitak. Joan Mari Irigoien

Baliteke umeek aititaren **antza edukitzea**, baita birraititaren itxura ekartzea ere, gurasoek euren gorputzean askotariko lehenki ugari nahasturik gordetzen baitute sarritan, lehen jatorritik hara aitatik aitara datorrena. Xabier Amuriza

Ba al daraman ezer janariaren **antza daukanik**, neska? Anton Garikano

Zergatik geratzen zen talaiaren **antza zeukan** sukaldean. Lander Garro

'Orgasmoak' 'pleonasmoaren' **antza dauka**, odol, gihar eta tripakiz eginiko zerbait dirudi. Pako Aristi

Bi orenetan xuxen, jantzi berezia zuen enplegatu batek kapera biluzi baten **antza zeukan** gela tarro batera sarrarazi gintuen. Daniel Landart

Komisione berri horrek ere, betikoaren **antza dauka**, neologismoa barkatzen badidazu, Patri, hitzolarena, hitz fabrika berri batena. Hasier Etxeberria

-Honen **antza zeukan** -Marcosek. Unai Elorriaga

Umetan bitxiloreekin egiten genuen jokoaren **antza dauka** Athleticen ibilbideak. Berria - Kirola

Tori Amos eta Ani DiFranco ere erreferentzia egokiak izan daitezke, baita Patti Smith eta PJ Harvey ere, baina Apple andereak badaki haien **antza edukitzen** eta erabat desberdina izaten aldi berean. Berria - Kultura

Alabaina, dantza honek **antza dauka** gure dantza debekatuekin. Koldo Izagirre

Eta aurrerabide horiei esker jakinen du azkenik, ni eta nire **antza daukaten** gainerako biziki ñimiñoak onberak edo gaiztoak ote garen, eskuineko bularra moztuko dioten ala ez. Josetxo Azkona

Salman Rushdieren **antza dauka** eta ezkutuan ematen du egun osoa. Harkaitz Cano

Gernikak labe baten **antza zeukan**. Lutxo Egia

Oso txikia zen; zutik jarritako hosto baten **antza zeukan**. Anton Garikano

5 ***antza eman***

Irrealak, traketsak iruditu zaizkizu, eta torturatzeko tramankuluen **antza eman** diozu bati. Rafa Egiguren

Sabaiaren erdian argi-armiarma bat zegoen, artile zarpailezko zorro batean bildurik, zeinari seda-harraren kuskuaren **antza ematen** baitzion hauts ugariak. Jose Morales

Santa Anako farola gorriak halako deabru **antza ematen** zion Hucken aurpegiari, garrek izututako deabruarena. Koldo Izagirre

Ez da batere erosoa horrela jokatzea, eta kantxan **antza ematen** zaio. Berria - Kirola

Irakaslea, Pablo Esparza izeneko gaztea zen, betaurrekoek eta beti goraka zuen ile horailak zoro **antza ematen** ziotena. Joseba Sarrionandia

Beren ezjakintasunari, baita beren asmatutako itxurapenei ere egiaren **antza emateko** antze sofistikoa zen, Logikak oro har ezartzen duen zehaztasunaren metodoa kopiatzen zuen eta bere topika asmo hutsal oro estaltzeko erabiltzen zuen antzea. Ibon Uribarri

Ba, iruditzen zait, nitaz egingo duzun antzezpena... makillajeaz nire **antza ematen** ahaleginduta ere... altuera horrekin... Josu Zabaleta

Elizabethen **antza eman** zion Nathanielek Bostongo inprimategi txiki batean, artean tinta-usainaz, pilaturik zegoen bere nobelako Hester Prynneri ere. Anjel Lertxundi

Itxura denez, espainiar gripearen **antza ematen** diote mutazioek H5N1ari. Berria - Gaiak

"Ez dugu farora joaterik izango, James", esan zuen Ramsay jaunak, leiho ondoan zutik, trakets hitz eginez, baina emazteaganako begiruneagatik ahotsa goxatuz, jator **antza emateko**. Anton Garikano

6 ***antza hartu***

Haren **antza hartuko** ote dute alabek? Oskar Arana

Ur-baporea askatzen zuten makinei begira gelditu zen Monike; negutegiko sabaitik zintzilikaturik zeuden, eta gargolen **antza hartu** zien une batez. Eider Rodriguez

Izarren **antza hartuz** ibai bat dago hemen. Santiago Iruretagoiena

Harryk euritako beltz zimurtu baten **antza hartu** zion. Iñaki Mendiguren

Eta goi mailako zaldunak badira, behekoen **antza hartzeagatik**, hantxe eta hantxe hil behar dutela diruditenak; beren gehiago nahiz edo onbidez igotzen dira haiek. Patxi Ezkiaga

Nik ez dut ulertzen nolatan akademiko batek ezezta dezakeen honela mintzo den norbait: honi txuri **antza hartzen** diodala badakit; hau nire belarrien gozamenerako dela

badakit. Imanol Unzurrunzaga

Pase sakon pare bat Kovacevic eta Nihati eta Reala aurreko denboraldikoaren **antza hartzen** hasi zen. Berria - Kirola

Tximuaren **antza hartzen** du askotan akzioen portaerak, adarrez adar jauzika, gora eta behera. Berria - Ekonomia

Ahalegin horri txanpon-makinen **antza hartzen** diot nik: txanpona sartu eta sartu, eta inoiz saririk ez. Bernardo Atxaga

Igaro ziren hilabeteak, eta urriaren erdialderako Tomek ia hamar kilo galdu zituen, eta behialako Erpurutxo Doktore gaztearen **antza hartzen** hasia zen berriro. Oskar Arana

Augustok altxor publikoari esleitu zizkion legeok ezgaitzat jotzen zituztenen oinordekotzak eta legatuak .332, eta lege horiek lege fiskalen **antza hartu** zuten, politiko eta zibilen antza baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

Ikasleen **antza hartu** zien inguruan eserirk zeuzkan gizon haiei. Jose Morales

Jesusen **antza hartu** nion, hantxe Iddesleigheko elizan gurutziltzaturik, ostera etxea gogora ekarririk. Mirentxu Larrañaga

Kaleak Mediterraneoko festen **antza hartuko** dute etzi Camaleo txotxongiloen eskutik. Berria - Kultura

Ostiraleko zoritxarra atzean geratu zelarik, benetako abiatzeak besta **antza hartu** zuen. Berria - Euskal Herria

7 ***antza izan*** du *ad*

Edo hitz opakoak, Perti kimikako gure irakaslearen espresioa erabiltzeko: "Gezurrik eraginkorrena, opakoa: ispiluaren **antza izanagatik** ere, ez du argia pasatzen uzten". Anjel Lertxundi

Errekako uraren **antza badu**, pixkanaka harria garbitzen eta leuntzen duen ura. Berria - Kultura

Kontuz ibili! Pakistandar **antza duen** edonor La Reunion uhartekoa izan daiteke! Berria - Harian

Eta horrekin zerikusirik badute ere Poztasunez nahiz Tristuraz hunkitzen gaituzten objektu horiek, afektu ber horiez hunkitu ohi gaituzten objektuekin **antza izate** hutsagatik, hurrengo Proposizioan erakutsiko dudan bezala. Piarres Xarriton

Esaten zuen haren **antza zuela** Morfeok. Antton Olano

Maitasun sendoak urre garbiaren **antza du**. Joan Mari Lekuona

Trenbideen itxiturak blokeatzen dituen katigamenduen kabinak Ariston ikaragarri handi baten edo Forbes makina baten **antza zuen**; telegrafoaren mahaiak lehengo leiho beraren azpian segitzen zuen. Fernando Rey

Pentsatzen dut, bai, zeren **antza izango** duen gaur egungo sendagile baten kontsultak. Josu Zabaleta

Izan ere, horretan, turistenen **antza dute** prentsa argazkiek. Iñigo Aranbarri

Hilda eta lurperatua zegoen jendearen oroitzapenean: inori ez zitzaion bururatu ere egingo, hara, hara komediantearen **antza du** ba clochard-homeless-kalejale-txanponerruki horrek! Harkaitz Cano

Gizarte gerarazi hauek erle eta inurrien sozietateen **antza dute**, bere horretan geldi egon direlarik giza bizitza lurrean agertzen hasi aurretik. Iñaki Mendiguren

Horregatik, angelu guztiek sentimenari ihes egiten diotenean, harri eraikina torneaturik ikusten da, ez hurretik hala ikusten eta benetan biribil direnak bezala, baizik era lanbroan hauen **antza dutela**. Xabier Amuriza

Kontatuko dizut akaso aurtengo igeriketa-irakasleak noren **antza duen**. Arantxa Iturbe

Aitak mago baten **antza zuen**. Juan Kruz Igerabide

---

antzagabe 1 *izond* antzik gabea, moldakaitza.

Jainkoa (ustez, beretzat ez zen mundua baino izango) ez dela ez amaiduna, ezta amaigabea ere, ez dagoela ez higiduran, ezta geldi ere, beste gauzen antzarik ez duela, baina **antzagabea** ere ez dela baieztatzen zuen. Ibon Uribarri

2 ***antzagabeko*** *izlag*

Unibertsoak existitzen dena bere baitan biltzen badu, orduan, hainbestez, bere antzekoa den edota **antzagabekoa** den beste gauzarik ez dago, zeren beretik at beste gauzarik ez baitago bera honekin alderatu izateko moduan. Ibon Uribarri

---

antzakaitz *izond* trebetasunik ez duena. ik **moldakaitz**.

Halamoduzko jende zarpail, lapur, **antzakaitzen** izengoiti gisa ere usu erabilitakoa da "Zakuto" euskaraz. Patziku Perurena

---

antzaldaketa *iz* itxuraldaketa. ik **transfigurazio**.

Antzaldaketa guztiak bezala [...], adierazgarritasun gehiago irabazteko erabili izan da gehienetan, eta zinema mutuaren garaiko lehenengo teorialariak aitortua zuten aldaketa horiek duten interesa. Josu Zabaleta

Harrigarria zen, txoloma edo pagausoak pasatzearen itxaropen hutsak, oilagorren bat, kalandriak, kazkardoak edo tzip-tzip kantatzen duen birigarroren bat susmatzearen aukera bakanak zein nolako **antzaldaketa** eragiten zuen, osterantzean, astean zehar. Pako Aristi

Antzaldaketa, futurismoaren espiritualizazioa, "erlijio nagusiak" sortzen dituen arima-ekintza da. Iñaki Mendiguren

Ez dio axola, baina lehenengo aldia da nire **antzaldaketa** batek ez duena gelakoen txalorik jasotzen. Iñaki Mendiguren

Antzaldaketa: nekaldi ondoko aintza aurrez agertu. Elizen arteko biblia

KRISTOREN **ANTZALDAKETA**. Patxi Altuna

*Volksgeist*aren ideiaren historiari, Italia eta Frantzian hasi, Alemanian jarraitu eta Espainian amaitu, esesten ari gatzaizkiola, **antzaldaketa** bikoitz esentziala, hastapenetatik amaiera espainolera, beste inon baino hobeto Ortega-ren luman erreparatzen dugu: Volk edo herria (nazioa), arraza nola bilakatu den; eta izpiritua, arima. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antzaldaketako eskola** (4)

---

antzaldarazi, antzandaraz(i), antzaldarazten du *ad* antzaldatzera behartu.

Beharbada, eta zin eta zin hau dela bide, berriz ni mandatari bidaltzeko gogoak kenduko dizkiot erabat, zeinen erantzun kaxkarrak ekartzen dizkiodan ikusirik alegia; edota, agian, eta hala uste dut, berak aipatu ohi dituan mira-eragile gaizto horietakoren batek, gaizki egiteagatik, **antzaldarazi** duela bururatuko zaio. Patxi Ezkiaga

---

antzaldatu, antzalda(tu), antzaldatzen *(ETCn **504** agerraldi)* 1 *(ETCn **504** agerraldi)* itxuraldatu.

Kristo gure Jaunak hiru ikasle maite, Pedro, Santiago eta Joan, lagun harturik, **antzaldatu** zen, eta aurpegia eguzkiaren antzeko zuen, eta soinekoak elurraren. Patxi Altuna

Emakumea **antzaldatu** egin da txaloekin. Anjel Lertxundi

Mimikarako iaioa zen; behiez, oiloez, ardiez eta txakurrez hitz egitean, **antzaldatu** egiten zen, haien begirakune, mugimendu eta ahotsak imitatzen zituen, alai-alai jartzen zen, eta bera ere piztia modukoa bilakatzen, azti baten gisa. Juan Garzia

Potzolori begitartea **antzaldatu** zitzaion. Aingeru Epaltza

Igandeetan marrazkiak egiten zizkidan, eta antzerkia, eta **antzaldatzen** ziren panpinak. Patxi Zubizarreta

Eta **antzaldatu** egin zen haien aurrean: aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain zuri. Elizen arteko biblia

Badira gizaki ezjakin eta zentzugabeak, hau hitzez hitz ulertzen dutenak, eta esaten ere dutenak eurak natura jainkozkoan **antzaldatuko** direla. Joan Mari Lekuona

Hark **antzaldatuko** du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez. Elizen arteko biblia

Jainkoaz blai, aldatzen da eta **antzaldatzen** jainko-erara. Joan Mari Lekuona

Gizaki batek edontzia hustutzerik balu, eta honek eduki lezakeen guztia kentzerik, baita haizea ere, **antzaldatuko** luke ezbairik gabe koparen izaera eta hustasunak zeruraino igoaraziko luke. Joan Mari Lekuona

Nirekin arazoak zituela esan ohi zuen, etengabe **antzaldatzen** nintzelako -hasi zen gelan alderik alde ibiliz berriro ere-. Joxean Agirre

Hau gizaki bikainen berezitasuna da, ongi barneraturik eta **antzaldaturik** daudenena; hauetan bat eginik doaz otoitza eta poza, batak bestea eragozten ez duela. Joan Mari Lekuona

Bizitza arautzen duen mekanismoaren antzeko batez, ordu oro Herioz **antzaldaturik** dagoen automata batek kanpai bat jotzen du, plazako biztanleei eta are urrunagokoei bizitzaren laburtasunaz gaztigu emanez. Felipe Juaristi

Aski da gogoratzea, nola, urruti zegoela, suzko gurdian **antzaldatuta** agertu zitzaien anaiei eta nola Arlesko kapituluan gurutze irudian aurkeztu zen. Askoren artean

Hau, Durandarte nire laguna da, bere denborako zaldun adoretsuen eta maiteminduen lore eta ispilua; neroni ere, beste asko eta asko bezala, **antzaldatua** nago hemen. Patxi Ezkiaga

Ezkutuko misterioa da, izpirituan **antzaldatua**, arima-zolan ere bai, eta Jainkoagan. Joan Mari Lekuona

-Benetako idazleak mozorroaren profesionalak dira, inposturaren maisuak, **antzaldatzen** iaioak. Joxean Agirre

Halakoari jeneralean bi aukera eskaintzen zaizkio bere buruaren gaztegintzarako: bata, "gizartea aldatzea", gizartea edo mundua bere osotasunean harturik txukuntzea, zuritzea edo **antzaldatzea** (osotasunean, eta ez bestela: osoaren zain egonez deus alda edo hauts ez dadin), eta orduan gaztea ONG batean sartzen da edo izatezko ezkertiarra edo modagoko zerbait egiten da zerbait izateko. Iñaki Segurola

2 (era burutua izenondo gisa)

Ezteietako soineko **antzaldatua**. Berria - Kultura

Zirrikitu hartatik begiratuz gero, negua izan edo uda izan, presoak mundu **antzaldatua** ikusten zuen. Fernando Rey

Horixe eta bera egin ohi du gizaki barnekoi eta **antzaldatuak**. Joan Mari Lekuona

Sinetsi biezat, nire jaun Don Kijote Mantxako, berorrek beharraldi dion hori edonon ohi dela eta edonora zabaltzen dela eta edozeini heltzen diola horrek eta ez diela **antzaldatuei** ere barkatzen. Patxi Ezkiaga

3 (era burutua izen gisa)

Antzaldatuok, amodioz erdi erotuak gaudenok, bista ona dugu, badira txikikeriak beste batek sumatzen ez dituenak, baina guri ez zaizkigu oharkabean pasatzen. Fernando Rey

Egilearen aurpegi **antzaldatua** diseinatu gabe. Xabier Arregi

Sinetsi biezat, nire jaun Don Kijote Mantxako, berorrek beharraldi dion hori edonon ohi dela eta edonora zabaltzen dela eta edozeini heltzen diola horrek eta ez diela **antzaldatuei** ere barkatzen -Eta jan, **antzaldatuek** jaten al dute? -lehengusuak galde. Patxi Ezkiaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
antzaldatu egin (5); **antzaldatu egiten** (3); **antzaldatu zen** (3)

---

antzaldatzaile *izond* antzaldaten duena.

Jaisten da orobat Izpiritu Santua usoaren itxurapean, bere begi **antzaldatzaileak** horiengan ezartzen dituela, hor Salbatzaileak ere ura ardo bihurtu duela, gaurko hirugarren ezaugarri liturgikoa. Joan Mari Lekuona

---

antzaldatze *iz* itxuraldatzea.

Orain Jesusen Taborko **Antzaldatzea** ospatzen baitu Elizak. Pello Zabala

Hau guztia Santxo Panzak bere nagusiari entzun zionean, burua galdu ala barrez lehertu, hortxe-hortxe jarri zen; ongi baitzekien zer-nolakoa izana zen Dulzinearen **antzaldatzea**, gezurrezkoa dena. Patxi Ezkiaga

Edurneren **antzaldatzea** hain izan da agerikoa, Fernanek berak galdegin baitio, bakarrik gelditu diren batean: [...]. Aingeru Epaltza

Misterioen maisu eta legearen nagusi, pentsamenduaren tronuaren gailurretara goratua, **Antzaldatzearen** distira hitsak aurpegia harturik, zangoak elkargurutzaturik eta mihia alborantz okertuz, editoreak bere nahia paperean listukatzen du eta erabiltzeko moduko neurrietan zirtzilatzen. Xabier Olarra

Horra zergatik Aubrey-k, soilik gizonei atxikitzen baitzaie, ez duen iristen perfekzioa, ez baitu jakin lortzen Hokusai-k espero zuen **antzaldatze** mirarizkoa, hots, elkar-antzekotasuna anitz-ezberdintasun bilakatzea. Juan Garzia

Adimendurik ez bada aski zorrotzik janarien **antzaldatze** miragarriak ezagutuko duenik, nola nahi duzu hurbildu janari noble honek izpirituaren lekurik garbienean, antzaldatua den hartan, sortu duen misteriora, ikusiz kanpoko gizaki gaixoa nagia dela, lotia eta denerako traketsa? Joan Mari Lekuona

Diruaren modutsuko moral zikin batek miragarrizko **antzaldatze** bat obratzen du nola bataren hala bestearengan, eta garbiñezaleak garbizale ustel bihurtzen ditu bat-batean. Iñaki Segurola

Ez nituen ahaztuan haren idazkera imitatzeko saioak, eta neke handirik gabe neureganatu nuen haren letra, **antzaldatze** handirik gabe jarri nuen eskua haren mugimendu eta bihurtzeetara. Xabier Mendiguren Elizegi

---

antzandobi *(corpusean ez dago; ETCn **117** agerraldi)* **1** *iz* Lanius generoko hegaztia, tamaina ertainekoa, moko sendoduna eta isats luzea duena *(Lanius sp.)*.

Ugaria da, halaber, koartza, kurrilo, ahate, **antzandobi**, antzara eta beltxargatan. ETC-literatura, saiakera

Hegaztiek iparraldetik hegora migratzen dute normalean, baina **antzandobiek** ez. ETC-prentsa

Interes handiko hegaztiak ere ikus daitezke: **antzandobia**, arrano sugezalea eta zapelatz liztorjalea, besteak beste. ETC-prentsa

Aldian behin, espezie janari-bilatzaileen taldeko hegazti bat espezie dei-egileen taldeko hegazti batekin lehiatzen da -inurri-**antzandobi** urdin-gris batekin edo frutazale hegalzuri batekin- intsektu bat dela eta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antzandobi da hegaztien klaseko passeriformes paseriformeen ordenako Laniidae familia (biologia) familiako kideen izen arrunta. ETC-entziklopedia

2 *antzandobi arre* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Antzandobi arre, Lanius cristatus. ETC-entziklopedia

3 *antzandobi arrunt* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Antzandobi arrunta ("Lanius collurio") laniidae familiako hegazti paseriformea da, Eurasian bizi dena. ETC-entziklopedia

Enara eta usapalaz gain, **antzandobi arrunta**, atalarra, argi-oilarra, buztanzuria eta hegatxabala dira benetako beherakada izaten ari diren beste hegazti espezieetako batzuk. ETC-prentsa

Aldiz, landa zabalari eta belardiari lotutako hainbat espezie beherantz doaz: **antzandobi arrunta**, adibidez. ETC-prentsa

Benetako intsektu-ehiztari bikainak, ordea, **antzandobi arrunta** eta pitxartxar burubeltza dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *antzandobi burubeltz* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Antzandobi burubeltz, Lanius schach. ETC-entziklopedia

5 *antzandobi buztangorri* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Antzandobi buztangorri, Lanius isabellinus. ETC-entziklopedia

6 *antzandobi handi* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Antzandobi handia ("Lanius meridionalis") antzandobi laniidae familiako hegazti paseriformea da, Eurasian eta iparraldeko Asian bizi dena. ETC-entziklopedia

7 *antzandobi kaskagorri* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Euskal antzandobi espezieen artean bi udakoak dira, migrariak (**Antzandobi kaskagorria** Antzandobi arrunt arrunta, negua Afrikan pasatzen dutenak), eta Antzandobi handi handia dago gero, urte osoan aurkitzen ahal dena Ebroko isurialdean. ETC-entziklopedia

8 *antzandobi mozorrotu* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Antzandobi mozorrotu, Lanius nubicus. ETC-entziklopedia

9 *antzandobi sabelgorri* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Prionopidae eta Malaconotidae familiak gertukoak ditu eta antzina antzandobien artean sailkatzen zituzten. Adibidez, Malaconotidae familiako '**Antzandobi sabelgorri** Laniarius atrococcineus"ek **antzandobi sabelgorri** du izen arrunta. ETC-entziklopedia

10 *antzandobi txiki* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

210 espezietik gora zerrendatu dira. Besteak beste Tengmain hontza, txori zezena, zata arrunta, zingira-mirotza, mirotz zuria, giloia, okil beltza, kurriloa, itsas arrano buztanzuria, **antzandobi txikia**, miru gorria, arrano arrantzalea eta zapelatz liztorjalea. ETC-entziklopedia

---

antzar ik **antzar**a.

---

antzara *(orobat **antzar**)* **1** *iz* hegazti igeri-oinduna, ahatearen antzekoa, lumak arreak, mokoa laranja kolorekoa eta hankak gorrixkak dituena *(Anser anser).*

Udatzen batean, basoak gorritzen ari zirelarik, **antzara** bat aurkitu zuen lurrean zauritua. Pako Aristi

Erakustokian zintzilik zegoen **antzara** edo indioilo bat 121 **antzar**, ahate bat eta kaio bat hil ditu birusak mendebaldeko Qinghai eskualdean.aztore batek zauritutako **antzara** baten hiru odol tanta daude elur gainean. Karlos Zabala

Urrunxeago ahardi beltz bat, eta indioilar bat, oinazturak izutu eta derrepente makakorroka hasi zena, eta harantzago **antzara** batzuk, indioilarrak asaldaturik, beraiek ere marraka. Joxe Austin Arrieta

Hogei **antzara** gari beratua jaten ari ziren etxean, baina menditik arrano bat etorri zen, eta denei lepoa okertu eta hil egin zituen Mendi eta basoetako isiltasun berezian, txorien kanta eta azienden marruma besterik ez denean, edo ardi, behi eta behorren arranena, oso goiko **antzar** eta kurrilloen garramixtoetaz ere jabetuko zen gure aitona: Goraka **antzarrak**, artzaiak egun txarrak, botako zuen. Juan Kruz Igerabide

Antzarak, behiak eta ahuntzak aspaldi zeuden gorderik, eta haiek harroturiko hautsa aspaldi jaitsia zen lurrera, eta abeltzainak, lana amaiturik, abeletxeetako atetzarren alboan zeuden, esne-lapikoen eta arrain-zoparako gonbitaren zain. Jose Morales

Kerry, bestetik, **antzarrak** ehizatzen aritu zen atzo Ohion. Berria - Mundua

Antzarak hegaz doaz lerro-lerro, oso goiti. Oskar Arana

Goiz batean atea zabaldu zion eta **antzarak** ihes egin zuen indarberriturik, hegan eginez dotore. Pako Aristi

Antzara baten gisara karkaraka hasi zen: kar-kar-kar! Jose Morales

Antzara bat, bakarka, maldan. Iñaki Arranz

Jendea ez da beharbada ohartu, baina, Idatzederrek eskuetan zuen luma ez zen **antzara** batena... bai ordea, sai gorri batena! Berria - Kultura

Belatz horrek menditik etorri eta **antzara** harrapatu duen bezala, hala egingo du Ulisesek ere: [...]. Juan Kruz Igerabide

Irudi analogikoak, beraz, berezko **antzaren** imitazioa eta gizartean komunika daitezkeen zeinu-sorkuntza proportzio aldakorretan nahastuz gizakiak egindako sorkariak izan dira beti. Josu Zabaleta

Garai batean, idazteko baliatzen ziren **antzaren** lumak. Anjel Lertxundi

Horren ondoren, esnatu egin zen, eta jauregiko **antzarak** ikusi zituen, beti bezala garia jaten. Juan Kruz Igerabide

Jangelara abiatu ziren gero, etxekoandrea, **antzarak** bezala ibiliz, haien aurretik zihoala. Jose Morales

Inorengatik **antzarak** lumatzen ari dela esaten denean, poz-pozik dagoela adierazi nahi da. Anjel Lertxundi

Antzaren hazkuntzako egitekoetan pasatzen zituen egunak, beraz; eta luma-bilketaz edredoien betetzekoetan ere, lan eskerga burutzen zuen. Txillardegi

Islandiako Olafsvik herriko nasan jesarri da hoztuta gizona, **antzarrei** begira, mimetismoaren bila, Iparraldeko iparrari gertuago begiratzeko. Berria - Kultura

Antzarak karrankan, kartzela gaineko zeruan. Anjel Lertxundi

2 (izenondoekin)

Petrusen etxe berria, urmael zaharra, non orban batzuk ikus ditzakeen, ahateak behar dutenak, eta orban handiagoak ere bai, **antzara** basatiak behar dutenak, Lucyren ikusliar urrutitik etorriak. Oskar Arana

Haatik, ahate basa eta **antzara** basa asko ere. Herria

Tente jarri da, lepoa zut, amorrarazitako **antzara** zuriaren antzera, ukabilak estu ohe ertzean. Itziar Otegi

Begira zer nolako **antzara** lerdena! Anjel Lertxundi

Horrela mintzo zela, belatz bat igaro zitzaion hegan eskuin aldetik, erpeetatik zintzilik **antzara** handi bat -oilategiren batetik harrapatua- zeramala; jendea zetorren atzetik lasterka. Juan Kruz Igerabide

Goialdean, barra bateko kakoetatik behera, **antzara** gizen batzuk zeuden esekita. Karlos Zabala

Antzara arre gizen bat zegoen mahaiaren mutur batean eta, beste muturrean, perrexil-adaxkaz estaliriko paper izurtuzko ohe batean, urdaiazpiko handi bat. Irene Aldasoro

Antzara amorratuak bezala txistu eginez. Iñaki Mendiguren

Presoen arteko aliantza horretan ez dutela garrantzi makala ukaiten latzean behin **antzara** karrankariei egin ohi zaizkien kontu kitatze odoltsuek. Koldo Izagirre

Antzara karrankari hori! Itziar Otegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Behar izanez gero, **antzara**-talde osoa zatitzeko prest. Irene Aldasoro

Baina nire ustez txori talde hura **antzara**-aldra bat zen, besterik gabe. Txillardegi

Sekulako **antzara** pila ari da pasatzen. Koro Navarro

Indioilo edo **antzara** puska bat erosten zuen beheko dendan hamabi sosean. Karlos Zabala

Marka gorri bat, **antzara** zango formakoa, ezarri behar zuten jauntzietan josirik. Herria

Baziren indioilo luma luze beltzak eta **antzara** luma zuri lauak, gazteei belarrietan kilimak egiten zizkietenak. Karlos Zabala

Denbora urtzen zitzaidan eta hondarrean, ohean eta bakarrik ohean egotea ekintzarik seguruena nuela sinestera heldua nintzen, **antzara**-lumazko estalia anitz ez higatuagatik. Itxaro Borda

Ulertzekoa zen naski, aitzineko egunetan jakinarazia niolako, baraualdian nengoenez ardi gasna puska batez lagunduriko **antzara** -gibel xerra batez asetzen nintzela. Itxaro Borda

Denak eremu hertsian kokatzen ginen, ahatekiak eta **antzara** -gibelak paper finean troxaturik, gure bildotsak barne. Itxaro Borda

Susanna izeneko (hots, hebreeraz, "lirio") emakume maratz prestu batez maitemindu zen, zeinak **antzar** -hestebeteak prestatzeko errezeta mendeen mendeetatiko baten jakile baitzen **Antzar** lumak elur malutak. Juan Garzia

Haiexek daude orain modan, eta hain uhukatu eta gaitzetsiak, aldiz, antzoki arruntak -hala deitzen diete-, ezen hainbat ezpatadun bapo, **antzar** -lumen beldur, doi-doi ausartzen baita bertaratzera. Juan Garzia

Marka gorri bat, **antzara** zango formakoa, ezarri behar zuten jauntzietan josirik. Herria

Antzara -zirinezko orban bat. Xabier Olarra

Cazenavetarrek ez zuten mainuen moda berrietan sobera sinetsi, eta **antzara** hazkuntzari eutsi zioten. Txillardegi

Gabrielek eta Daly andereñoak **antzara** -platerak eta urdaiazpiko- eta haragi-platerak trukatzen zituzten bitartean, Lily afaldar batengandik bestearengana joaten zen, patata bero irintsu batzuk, eskuzapi zuri batean bilduak, plater batean zituela. Irene Aldasoro

Denek protesta egin zioten eta garagardo beltzari trago luze bat eginez amore eman zuen, **antzara** zatitze-lanak egarritu egin zuela konturatu baitzen. Irene Aldasoro

Aurpegi txiki eta erkineko gizon horrek ez zuen deabruaren antzik txikiena ere, baina haren **antzara** -karkaran bazen zerbait espetxearen santutasuna eta sendotasuna ezeztatzen zituena. Jose Morales

Lapurdi guzian, Biriatu herri bakarra gelditzen da **antzara** -jokoaren ohidura horri atxikia, nahiz han-hemenka ahate-jokoa egiten den, molde berekoa dena. Herria

4 *antzara ferratzera bidali* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Besteak baduelarik aitzinekoa **antzara ferratzera bidaltzeko** ahala. ETC-prentsa

Jurdaneko profeta eta haren paulotar ikasleak **antzara ferratzera bidaliak** genituen aspaldian. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *antzara ferratzera igorri* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Hiru urte eta erdiko bizi laburrean hainbeste poxolu, nor nahik denak **antzara ferratzera igorriko** zituen lotsaturik, Euskal Herriko Laborantza Ganbara beti hor dago xutik abiatua, eta lan jarraikia badarama. ETC-prentsa

Orain, Hitzarmen Bereziaren salbatzaile gisa agertu nahiko dute beren burua sozialistek, Lurralde Elkargoa **antzara ferratzera igorri** dutela ahantzaraziko baligute bezala. ETC-prentsa

6 *antzara ferratzera joan* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Jendeak gibeletik zernahi erran lezake haren aurka, baina **antzara ferratzera joan** bitez! ETC-literatura, saiakera

7 *antzara gibel*

Denak eremu hertsian kokatzen ginen, ahatekiak eta **antzara-gibelak** paper finean troxaturik, gure bildotsak barne. Itxaro Borda

Baraualdian nengoenez ardi gasna puska batez lagunduriko **antzara-gibel** xerra batez asetzen nintzela. Itxaro Borda

8 *antzara hankagorrizta* *(corpusean ez dago; ETCn **36** agerraldi)*

Antzara hankagorrizta ("Anser anser") Anatidae familiaren ahate domestiko eta ez-domestikoa da, "Anser" generoan arruntena dena. ETC-entziklopedia

Gainera, hamazazpi ur-hegazti espezie desberdin aurki daitezke aintziretan, haien artean, ahatebeltz arrunt eta ahatebeltz hegazuriak, beltxarga oihulariak, izotz-ahateak, murgilari handiak, zerra txikiak, eta **antzara hankagorriztak**. ETC-entziklopedia

Kaletik kilometro bat eskasera, hiriaren erdian ikusi zituen: txilinporta txikiak, koartzak, murgilari arruntak, ahate gorriztak eta basahateak, kopetazuri arruntak, **antzara hankagorriztak** eta indiar antzarak, eta batik bat belabeltzak. ETC-literatura, saiakera

9 *antzara hankahori* *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi)*

Antzara hankahoria ("Anser fabalis") Anatidae familiaren ahate ez-domestikoa da. ETC-entziklopedia

75-90 cm garai da eta Europako antzara handiena da, **antzara hankahori** urria baino apur bat handixeagoa ez bada ere. ETC-entziklopedia

Gainera, hamazazpi ur-hegazti espezie desberdin aurkitu daitezke aintziretan, haien artean, ahate gorriztak, ahatebeltzak, ahatebeltz hegalzuriak, beltxarga oihulariak, murgilari handiak, zerra txikiak, eta antzara hankagorriztak, **hankahori hankahoriak** , antzara muturzuriak eta antzara nanoak. ETC-entziklopedia

10 *antzara indiar* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Antzara indiarrak (Anser indicus) Everest mendikatearen gainetatik migratzen du; 9.000 metrotik gora hegan egiten ikusi izan dira espezie honetako banakoak (altuera horretan itsas mailakoaren herena da O2-aren presio partziala). ETC-zientzia, zuzenbidea

11 *antzara-joko*

Lapurdi guzian, Biriatu herri bakarra gelditzen da **antzara-jokoaren** ohidura horri atxikia, nahiz han-hemenka ahate-jokoa egiten den, molde berekoa dena. Herria

Antzara jokoaren imitazioa baina PP eta PSOEren lehia irudikatuz. Berria - Euskal Herria

12 *antzara mokolabur* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Antzara mokolabur , Anser brachyrhynchus. ETC-entziklopedia

13 *antzara nano* *(corpusean ez dago; ETCn **75** agerraldi)*

Antzara nanoa "Anser erythropus". ETC-entziklopedia

Antzara hankagorriztak, antzara hankahoriak, antzara muturzuriak eta **antzara nanoak** bezalako hegaztiak aurki daitezke. ETC-entziklopedia

Oso ohikoak dira bertan, urre txirri arrunt abeslariak, belatz beltz handiak, **antzara nanoak** , ipar-belatzak, arrano beltzak eta elur-hontzak bezalako hegaztiak. ETC-entziklopedia

14 *antzara-pauso* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Zebra-bide batean lau gizon ikusi zituen **antzara pausoan** eta txoro koadrila bat zela pentsatu zuen. ETC-prentsa

Zoriontasunak, Dixon, Madden, Crotthers, Costello, Lenehan, Bannon, Mulligan eta Lynch, kirurgiako ikasleen mantal zuriak jantzita pasatzen dira, launakako lerrotan, **antzara-pausoan** , erritmo zaratatsua ondo markatuz desfilatzen. ETC-literatura, saiakera

-Egin ezazu **antzara pauso** bat, Adolf -esan dio Ernestek. ETC-literatura, saiakera

15 *antzarak ferratzera bidali*

Garai batean **antzarak ferratzera bidaliko** gintuen. Joan Mari Irigoien

Ugazabandrearekin ondo moldatzen nauk eta ez diat nahi dena **antzarak ferratzera bidali** ... Lopez de Arana

Nahiago nuke **antzarak ferratzera bidaliko** bazenu Garry McVicker delako hori. Mirentxu Larrañaga

Bere oroitzapenak papereratuko ote lituzkeen galdetu eta harentzat batere espero ez zuen hordagoa izan zen, baina ez gintuen ezezko zorrotz batekin **antzarak ferratzera bidali** . Berria - Kultura

Mikelek emakumea **antzarak ferratzera bidaltzeko** aukera darabil istant batez bere buruan. Aingeru Epaltza

Eta neure arrazoiak dauzkat abokatu guztiak **antzarak ferratzera bidaltzeko** . Koldo Izagirre

Eta, hurrengo -: **Antzarak ferratzera bidaliko** naitek oraingoan, Tommo. Mirentxu Larrañaga

16 *antzarak ferratzera igorri*

Lepoa eginen nuke bat baino gehiago ni **antzarak ferratzera igorri** beharrean jarri nuela. Aingeru Epaltza

Bere posizioneaz eta zahartasunaz baliatuz, **antzarak ferratzera igortzen** zituen zaintzaleak. Filipe Bidart

17 *antzarak ferratzera joan* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Eta baten bati gustatzen ez bazaio, **antzarak ferratzera joatea** dauka. ETC-literatura, saiakera

Antzarak ferratzera joan zitezkeen beren bizitza europar perfektu horiekin guztiekin. ETC-literatura, saiakera

Baina kasu honetan, presagatik, Basque Country Street-eko kanta tristea **antzarak ferratzera joan** zaie. ETC-literatura, saiakera

18 *antzarak lumatzen*

Inorengatik *antzarak* ***lumatzen*** ari dela esaten denean, poz-pozik dagoela adierazi nahi da. Anjel Lertxundi

Baina zoriontsu jarri nau, antzarak **lumatzen** , Juan Kruz Igerabide adiskide aspaldikoak bidali didan gutunak. Anjel Lertxundi

19 *euskal antzara* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Euskal antzara Euskal Herriko bertako etxeko hegazti arraza baten izena da. Euskal Herriko baserrietan aspaldidanik egon da gris koloreko antzar mota hau. ETC-entziklopedia

Gueñesko Eoalak elkarteak lanean dihardu du gaur egun, eta **euskal antzara** desager ez dadin ere egiten dute beharra. ETC-prentsa

Erakusten du horrela Atxagaren jokoko **euskal antzarak** urratsak egiten dituela segur munduan barna, eta bereziki miarritzen bereko gune deseuskaldunduetan. ETC-prentsa

Euskal oiloa, mos, pedresa, piñeira eta asturiar pintoa oilo arrak ez ezik, **euskal antzarak** ere bilduko dituzte. ETC-prentsa

Zenbatutako betizuak 810 inguru dira Euskal Herrian, karrantzar muturbeltza 732, Enkarterriko astoak 105 eta **euskal antzarak** 80. ETC-prentsa

20 *indiar antzara* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Kaletik kilometro bat eskasera, hiriaren erdian ikusi zituen: txilinporta txikiak, koartzak, murgilari arruntak, ahate gorriztak eta basahateak, kopetazuri arruntak, antzara hankagorriztak eta **indiar antzarak** , eta batik bat belabeltzak. ETC-literatura, saiakera

Bertan bizi dira animalia espezie ugari, besteak beste: Hartz arreak, elur-lehoinabarrak, otsoak, markhorrak, Marco Polo argaliak, Asia erdialdeko kaioak eta **indiar antzarak** . ETC-entziklopedia

21 *Ross antzara* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Ross antzara , "Anser rossii". ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antzara bat** (10); **antzara baten** (3); **antzara edo** (3); **antzara jokoa** (4); **antzara jokoaren** (3); **antzara luma** (3); **da antzara** (3); **edo antzara** (3); **urrezko antzara** (3)
> **ahateak eta antzarak** (3); **antzarak ferratzera bidali** (9); **antzarak ferratzera bidaliko** (4); **antzarak ferratzera igorri** (3); **antzarak lumatzen** (3)
> **arteko antzaren** (3)

---

antzaraki *iz* antzararen okela.

Hala ere, indar baten egitea deliberatu eta **antzarakiaren** ordez, kuskusa eskaini zidan. Itxaro Borda

---

antzarakume *iz* antzararen umea.

Pena bakarra dut, jaun dukea, zeren, Rabelaisek bere Gargantua-n dioena egia bada, **antzarakume** lumatsuak bailirakete uzki-garbitzailerik onenak, eta zuek, aldiz, oihal eta hosto horiekin konformatu behar izan duzue. Joan Mari Irigoien

---

antzarazain *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* antzarak zaintzen dituen pertsona.

Garai hartako Saqqarako nekropolian, Mererukaren hilobian, hegaztiei mokoa zabaldu eta mokadu ederrak sartzen ari diren **antzarazainak** harrian zizelkaturik ageri dira. ETC-prentsa

---

antzarka *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* *adlag* arnasestuka.

Harroaren ondoko barean, **antzarka** biak, Janet istorio kontatzen hasten zitzaion amorosari. ETC-literatura, saiakera

---

antzatsu *izond* trebea, iaioa.

Bakan dira orduan hari ihardesteko segadatik salbatzen diren emakumeak, guztiak baitira **antzatsu** direlako ustean, ezeinek ere ez du **antzatsu** izate hori erakusteko okasiorik galdu nahi. Jon Muñoz

Arotz oso **antzatsua** zen Markos. Gotzon Garate

Erran gabe doa ezen Prévan hori, nahiz zuhaurk ez duzun ezagutzen, biziki atsegina dela, eta are **antzatsuagoa** . Jon Muñoz

---

antzе **1** *iz* trebetasuna.

Egintza horiek askotarikoak ditugu, arrazoitzeko ahalmenari darizkion **antze** horien kopurua infinitua baita. Xabier Kintana

Badirudi **antze** honen maisuei ez zaiela falta beren buruan konfiantzarik, ezta publikoari itxaropen handiak haien trebetasunagatik ere, baldin eta inoiz honetaz aritu behar badute. Ibon Uribarri

Zeren eta jaun Marcelek baitzuen bertzeen bihotzen ukitzeko zenbait **antze** eta trebetasun. Joan Mari Irigoien

Sukaldariek beti bezala agertuko dute beren **antze** , jakitate osoa, janariak moldatuz arta haundiarekin; beraz hurbildu gabe ez gare aise egonen. Herria

Antze hori ez litzateke, alabaina, azpijokoetan nahasten den gizonaren hezibidean irakatsi behar? Jon Muñoz

Emango zion gazte bati bere lehen aukera, sustatuko zuen haren lana bere ohiko **antze** eta graziarekin, sortuko zuen lan horrentzat merkatu bat, hasiko zen etekin on samar bat ematen, eta gero, bi edo hiru erakustaldi egin ondoren, artista hark hanka egingo zuen New Yorkera. Oskar Arana

Logika transzendentalaren bigarren zatiak, beraz, itxura dialektiko horren kritika izan behar du eta Dialektika transzendentala izena du, ez itxura hori dogmatikoki iradokitzeko **antze** gisa (tamalez ameslan metafisiko anizkunen **antze** oso arrunta dena), baizik eta, adimenaren eta arrazoimenaren kritika den aldetik. Ibon Uribarri

Doilorkeria honi, gai garen maiestate eta **antze** guztiaz behar diogu, aurpegi ez ezik, desenkusa ere eman. Juan Garzia

2 (izenondoekin)

Nik, ordea, ez dut eskola handirik jaso, ez dut menderatzen txukun hitz egitearen **antze** zail hori. Jose Morales

Iltze gehiago eta arotzen aldetik **antze** hobea eskatzen zuten. Edorta Jimenez

Batean bi pertsona zarela, alegia, gazte sutsu, oldarkor, joko eta abenturei guztiz emana, eta aldi berean zure trebetasunetan **antze** handiko gizona, zorrotz eta serio, arduratsu eta mugarik gabe jantzia. Eduardo Matauko

Korinton ba omen zen familia bat, haize indartsua geldiarazten **antze** haundia zuena. Patziku Perurena

Gerritik gora eranztea lortu zuen **antze** handiz eta, beharrik, metraila puskak sorbalda ukitu besterik ez ziola egin ikusi zuen. Karlos Zabala

Obra horrek jende asko liluratu du, **antze** handiz idatzita dagoelako. Iñaki Iñurrieta

Legelariak erantzun zion mundua hitz-jalez beterik dagoela, eta **antze** handiz ulerrarazi zion arranoa hegan baino hobe dela txepetxa eskuan. Jose Morales

Zabala bere asmoetan, soila asmoak gauzatzerakoan, inork ez du egundo izan gauza handiak erraz eta zailak laster egiteko **antze** handiagorik. Iñaki Iñurrieta

Aurreko epigrafean ahozko estrategia batzuek testu idatzietan duten garrantziarekin topo egin dugun bezala, oraingo honetan ahozko testuek idatzizko poesiaren **antze** bertsua erakuts dezaketela ikusten dugu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Nahiz eta berak denboraldi hartako gertaera guztiak **antze** miresgarriz eman, hura ez da inondik ere ageri autoreen obretan. Iñaki Iñurrieta

Agerpenei eta beren forma soilari dagokienez adimenaren eskematismoa giza arimaren sakonean dagoen **antze** ezkutu bat da, eta bere benetako funtzionamendua nekez ezagutaraziko digu izadiak, bera desestaliz begi-bistan jartzearren. Ibon Uribarri

Argumentu kosmologiko honetan hainbeste oinarri-esakune sofistiko biltzen dira, ezen baitirudi arrazoimen espekulatiboak hemen bere **antze** dialektiko guztia eskaintzen duela, itxura transzendental ahalbait handiena sortzearren. Ibon Uribarri

Orobat, giza soinaren egitura ikusten dutelarik, zoratzen dira eta antolaketa eder horren kausak ez baitakizkite, hortik ateratzen dute ez dela **antze** mekanikoz egina baina jainkozko edo naturazgaindiko antzez osatua dela alde batek beste baten ez zaurtzeko gisan. Piarres Xarriton

3 (hitz elkartuetan)

Nahiz eta **antze**-lanetan motzagoa ibili hasieran amaieran baino, Rodolfo garbia atera zuen, berekoia eta desorekatsuaren rolean; bularretako ahots gardena gehienetan zabaldu zuen hala goi tesituran nola behekoan. Berria - Kultura

Aldiz zurrunago ikusi genuen bai abesgintzan zein **antze**-moduetan hasierako Mi chiama-no Mimí-n esaterako, batere apaldu barik bere arrakasta. Berria - Kultura

Legeek ez dute izan behar sotil-bihurriak; adimen kaxkarreko jendearentzat eginak dira; ez dira logika-**antze** bat, baizik eta familiaburu sinple baten arrazoia. Iñaki Iñurrieta

---

antzean **1** *postpos* (izen edo izendondo baten eskuinean)

Hotzak harrapatu, oratu eta estutzen gintuen, baina han jarduten genuen, irristaka, bultzaka eta estropezuka, oinak bustirik, atzamarrak hozmindurik, belarriak gorriturik, begiak gaziturik, sudurra zaldiko nekatuen **antzean** lurrina zeriola. Joseba Sarrionandia

Gaizto izan bazara, paria edo animalia **antzean**. Gotzon Garate

Gehiegi jaten du gizon honek, bistan da; bere hazpegiak lodiak dira, koipeztatu **antzean** beti. Itziar Otegi

Soldadua, pistola esku batean hartuta, imintzioka hasten zaienean, haiek, irria begietan, jolas **antzean** jarraitzen diote. Iñaki Iñurrieta

Artean eta literaturan bilatu nuen etxean mamu atxikiezinen **antzean** alderrai zebiltzan sentsazio eta sentimenduen mintzabidea. Joxan Elosegi

2 *postpos* (adizlagun baten eskuinean)

Zer ote zuten, galdetu zuen berekiko, triste **antzean**, bera bertan ez zegoenean jardungo zutela farrez iruditzen baitzitzaion. Anton Garikano

Familian papertegia zeukan Aristegi izeneko ikaskide batek ekarri zigun papera, merke **antzean**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ama nagusia haserre **antzean** mintzatu zitzaion: Joan Mari Irigoien

Ezkondu eta urtebete ingurura, Lulu gaixo **antzean** jarri zen; arreta galdurik, malenkoniatsu, kezkatuta zebilen. Josu Zabaleta

Jaiki egiten da, haserre **antzean**: Eskarne Mujika

Horregatik urduri **antzean** sumatzen zaio donostiarrari, Bordeleko hoteleko telefonoaren bestaldean. Berria - Kirola

Oso ona, libre **antzean** jarduteko aukera eman didatelako. Berria - Kirola

Ipuin hau berdin **antzean** kontatuko dizute Portugal negarberan ere. Iñigo Aranbarri

-Ez dut ezetzik esango -esan zuen Kernan jaunak, urduri-**antzean** irribarrez. Irene Aldasoro

Gurean, betiko **antzean** gabiltza, atze-atzean alegia. Txema Ramirez de la Piscina

Arrazoi osoz esan ohi da, beraz, ezein diziplinatan ezjakitun direnen arimak eta eskolatu gabekoak baraurik eta gose **antzean** daudela. Imanol Unzurrunzaga

Ziegako leihotik oskorriari begira jarrita, Dueñas daukat goi **antzean** aurrez aurre. Jokin Urain

---

antzegabe *izond* antzerik ez duena.

Bere garaian ankerra eta **antzegabea** zirudien egitatea, leundu egin du denborak. Koldo Izagirre

---

antzekaitz *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *izond* trebetasunik gabea.

Badakizu hobe dela aurka ez egitea, den-denean zabalduko zaizula muinetaraino, eta zeure izatearen eremu ezagun eta ezezagunekin nahastuko dela ore trinko eta **antzekaitza** osatu arte. ETC-literatura, saiakera

---

antzeko **1** *izlag* antza duena.

Miranderen Haur besoetakoa berrirakurtzea lagungarri izan zaigu, **antzeko** eszena batzuk jasotzen dituelako. Ibon Uribarri

Bere bizitzan gurutzatu zen emakumeak ere **antzeko** itxura zeukan, eta izaeraz eratsu samarra zirudien, baina... Migel Angel Mintegi

Luisak, gutxi gorabehera, **antzeko** hitzokin amaitu du: Patxi Zubizarreta

Ondoren 'Ez al dituzu argumentuak nahasten? ' eta **antzeko** azpigalderak etortzen dira. Pako Aristi

Ezta ere "benetako gertaera batean oinarritutako fikzioa", **antzeko** zenbait kasutan esan ohi den bezala. Rafa Egiguren

Bestalde, i a, e, o batzerakoan, beste soinu bat sartzen da bien tartean sortaldeko hizkeretan, edo **antzekoa**, gehienetan. Koldo Zuazo

Antzeko aldartean Ekialde Urruneko estatu unibertsaleko enperadore mantxuek zera uste zuten beren diplomazi tratuetan: gobernu guztiek, Mendebaldeko mundukoek barne, iraganean garai zehaztugaberen batean txinatar agintariengandik hartu zutela existitzeko baimena. Iñaki Mendiguren

Txapelak, alkandora zuriak, abarketa garbiak eta korbatak **antzekoak** dira, baina aurreneko ilaran lurrean eserita daudenak mozorrotuta daude. Iñigo Aranbarri

Ediporen konplexua islatzen ote duen, ustezko pedofilia agerian jartzen ote duen eta **antzeko** irakurketa morbosoak egin izan dira, baina ez gara ur handiegi horietan sartuko. Julen Gabiria

Horrexegatik, beharrezkoa da esatea "zientifikoki edo teknikoki egokiena" edo "teknikoki bidezkoena den erabakia" eta **antzeko** leloen bizkarrean, sarritan bestelako jarrera eta arrazoibideak ezkutatzen direla. Iñaki Heras

Zentzu askotan da kristauen oso **antzekoa**, oso monoteista: liburu edo autore bakarreko jendea da, Biblia eta Yahve. Markos Zapiain

Coruñara heldu eta gutxira **antzeko** gertaera bat ikusi zuen Joxanek. Paddy Rekalde

Batetik besterako distantziak **antzekoak** otu zitzaizkion, eta triangeluari esanahia bilatu nahi izan zion. Joxemari Urteaga

Garai hartan etxe guztiak **antzekoak** ziren... Harkaitz Cano

Obra sei liburuz osatzen da, denak **antzeko** egituradunak: Epikuroren, bere aholkulari eta maisu filosofikoaren gorespen baten ondoren, gaia garatzen du. Xabier Amuriza

Osaba Vernonen oso **antzekoa** zen: handia, mozkotea eta aurpegi gorrixkakoa; bibotea ere bazuen, baina ez bere nebarena bezain sendoa. Iñaki Mendiguren

"Nire gurasoen etxeko salan ere badago **antzeko** bat - esan zidan Mary Annek jantokian zintzilikatua zegoen Picassoren koadro ospetsuaren erreprodukzio bat seinalatuz -. Bernardo Atxaga

Horregatik, beste askotan bezala "gerra, bai, baina duintasuna ez genuen galdu" eta **antzekoak** esaten ari ziren batean, "sartu ez bagina, hobe" bururatu zitzaion berari. Ramon Saizarbitoria

Espazioa eta denbora, adibidez, Kanten aurretik, edo objektu absolutuak ziren, hots, espazio eta denbora absolutuak ziren, edo gauzen arteko harremanak ziren, egoera,

urrunera eta **antzekoen** gisa. Ibon Uribarri

2 (-en atzizkiaren eskuinean)

Eta noizpait altxatu zenean, gosearen **antzeko** zerbait sentitu zuen, baina edaleek soilik izaten duten moduko gosea. Matías Mujika

-Gainera -gehitu zuen ziurtasun handirik gabe-, zu haren **antzekoa** zarela esango nuke, aizu. Aitor Arana

Aurrekoa zerbait lauso eta nahasia baino ez zen izan, nire oroimena berriro inoiz murgildu ez den garaia, hautsez betetako soto baten **antzekoa**, armiarma sarez estalitako gauza eta pertsonez betea, hain nahaspilatuak ezen nire bihotzak ahaztu baititu. Eduardo Matauko

Beste askoren **antzekoa** izan behar du nonbait. Eskarne Mujika

Azpil-nahaspilak, nolabait esatearren, Zuberoako pastoralen **antzeko** ekitaldiak ziren, baina bere ñabardura propioak zituztenak, Zuberoan zuriak definitzen baitu aingeruen mundua, eta Azpilen, berriz, urdinak, besteak beste. Joan Mari Irigoien

Sorayaren eta beraren arteko ekinaldiek sugeen kopulazioaren **antzekoak** behar dute izan, hala irudikatzen ditu: luzeak, erabat hartan murgilduak, baina abstraktu samarrak, lehor samarrak, are beroenean ere. Oskar Arana

Ederrenek ere ez ditek irauten, hondartza baten **antzekoak** dituk-eta: beti heltzen duk olaturen bat ordu arteko indartsuenak utzitako arrastoa desegitera. Anjel Lertxundi

Berehala senditu dut haren urratsaren neurria ez dela enearen **antzekoa** eta asmatu, presatu gabe, gizon gazte sekailaren heinean izanen naizela, ordu laurden bat barne, San Anton komentuaren murruak ikusi aitzin. Piarres Aintziart

Segidan, ezer esan gabe, mahai gainean zeukan zurezko makilatxo bat, usta baten **antzekoa**, hartu eta zutitu ondoren leihorantz abiatu zen. Joxemari Iturralde

Itxuraz ere - Euskal Herriko ardi-zakurrez ari naiz-, ardien **antzekoak** dira, txuri eta ile ugariarekin. Gotzon Garate

Hitzaldi hauetan funtsezko egia bat ikasi zuen; Hasiera liburuaren 1. Kapituluko 27. txatala, Jaungoikoak, beraz, bere **antzeko** egin zuen gizakia, Jaungoikoaren beraren irudira egin zuen; ar eta eme egin zituen, ez dela era antropomorfikoan ulertu behar, Jaungoikoa bizardun eta iletsua bailitzan, era espiritual teozentrikoan baizik. Imanol Unzurrunzaga

Hizkuntzalaritza eta, zentzu zabalagoan, psikologia giza hizkuntzaren ezaugarriak zein diren ulertzen eta giza hizkuntzak ezaugarri horiek edukitzearen arrazoiak aurkitzen saiatzen dira, haien **antzeko** beste jakintza batzuekin batera. Itziar Laka

Azken batean gure antzinako sofa horren **antzekoa** izateko itxura du honek: zuek utzi hortxe izarak eta konponduko naiz ni. Iban Zaldua

Gorputza bere senarrarenaren **antzekoa** zuen, hezurtsua eta iletsua, bere zintzur-sagarrarekin eta bere zilborrarekin. Koro Navarro

"Jo dezagun burua Eguberrietako pinu horietako baten **antzekoa** dela. Bernardo Atxaga

Esku artean ez du klarineterik, Jeremy Ironsek The Misionen oihaneko seme-alabak liluratzeko erabili zuenaren **antzekorik**, ezta txistu kaxkar bat ere, euskalduna izan arren. Martin Anso

Ile uhintsua zuen, neskatila batenaren **antzekoa**. Xabier Olarra

3 (izen edo izenondo soil baten eskuinean)

Baina ez ziren zuriak, hori **antzekoak** baizik, Veneziako san Marco Plazako harriek ilunabarrean hartzen duten hori kolorekoak, lur higatu eta gehiegi erabiliaren kolorekoa, desertu eta eremu kolorea, nekearen kolorea, gaixotasunaren kolorea. Felipe Juaristi

Bostera iristeko, patata ta tatamia surrealista **antzeko** hitz parea elkartu behar dugu. Iñaki Arranz

Eztarri zuloko azkura **antzeko** bat dakarkiote oroitzapen mingarriok; minak minari dei eginda bezala, bere orpoez gogoratu da: zapatilak erantzi ahala oinazea eta lasaitua nahastu zaizkio; gorriturik dauzka, urratua zauri bihurtzeko zorian. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitz hauek berebiziko poza eman zioten semeari, erabakia balego bezala espedizioa egitearena, eta urtetan eta urtetan irrikatutako mirari **antzeko** hura eskura balego bezala, gau bateko iluna eta egun bateko bidaiaren ondoren. Anton Garikano

Biblia nazional **antzeko** zerbait bilakatu da historia (ideologia nazionalaren jariatzaile nagusi). Joxe Azurmendi

4 *eguzki antzeko*

Antoniak lehertua zuen arrautza gorringoa, eta xardearen hortzez haur-marrazki batetik sortutakoa zirudien **eguzki antzeko** zerbaiti izpiak luzatzen zizkion platerean. Josu Landa

5 *opalo antzeko*

Kanpoaldetik ikusita, Cosmopolitan kafetegiak akuario lohitsua zirudien: bertan, kea **opalo-antzeko** kiribil urdin eta berdeetan igotzen zen eta mahaien inguruan aurpegi hitsak ez ziren geldirik egoten, gaizki sailkatutako arrainak bailiran. Lopez de Arana

6 *txistu antzeko*

Barrako gizonak **txistu-antzeko** hots bat jaulki zuen letaginen artetik. Lopez de Arana

-Hi, adiskidea, alferrikako borrokan ari haiz hor -esan zion ispiluak **txistu-antzeko** ahotsarekin. Iñaki Mendiguren

Orduan Riddleren **txistu-antzeko** ahotsa entzun zuen: "hil ezazu". Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

antzeko adierazpenak (11); **antzeko arazoak** (17); **antzeko bat** (176); **antzeko bat izan** (10); **antzeko batean** (19); **antzeko baten** (9); **antzeko batez** (13); **antzeko batzuk** (16); **antzeko beste** (148); **antzeko beste bat** (9); **antzeko beste batzuk** (11); **antzeko bidea** (10); **antzeko bihurtzen** (9); **antzeko da** (17); **antzeko dira** (17); **antzeko egin** (9); **antzeko egitura** (9); **antzeko egoera** (37); **antzeko egoeran** (62); **antzeko egoeretan** (11); **antzeko emaitzak** (10); **antzeko ezaugarriak** (25); **antzeko ezer** (24); **antzeko gauza** (15); **antzeko gauzak** (25); **antzeko hitz** (9); **antzeko hitzak** (21); **antzeko ibilbidea** (10); **antzeko iritzia** (29); **antzeko izan** (21); **antzeko izango** (14); **antzeko jarrera** (18); **antzeko kasuak** (9); **antzeko kontuak** (11); **antzeko maila** (11); **antzeko pilotak** (10); **antzeko zer** (14); **antzeko zer edo** (13); **antzeko zerbait** (501); **antzeko zerbait da** (13); **antzeko zerbait egin** (20); **antzeko zerbait egiten** (15); **antzeko zerbait esan** (23); **antzeko zerbait gertatu** (49); **antzeko zerbait gertatzen** (54); **antzeko zerbait sentitu** (13); **antzeko zerbaiten** (11); **baten antzeko** (107); **baten antzeko zerbait** (35); **bere antzeko** (18); **beste antzeko** (19); **denaren antzeko** (10); **duenaren antzeko** (9); **elkarren antzeko** (10); **haren antzeko** (41); **haren antzeko beste** (9); **honen antzeko** (23); **horien antzeko** (12); **horren antzeko** (32); **nire antzeko** (13); **oso antzeko** (45); **zuen antzeko** (13)

antz antzekoa (9); **antzekoa baita** (11); **antzekoa da** (199); **antzekoa dela** (33); **antzekoa den** (22); **antzekoa du** (9); **antzekoa egin** (28); **antzekoa gertatu** (25); **antzekoa gertatu zen** (11); **antzekoa gertatzen** (25); **antzekoa gertatzen da** (12); **antzekoa izan** (70); **antzekoa izan da** (11); **antzekoa izan zen** (27); **antzekoa izango** (47); **antzekoa izango da** (23); **antzekoa izaten** (11); **antzekoa zela** (12); **antzekoa zen** (78); **baten antzekoa** (143); **baten antzekoa da** (31); **baten antzekoa izan** (10); **baten antzekoa zen** (14); **duenaren antzekoa** (18); **dutenaren antzekoa** (9); **haren antzekoa** (9); **honen antzekoa** (9); **horien antzekoa** (12); **horren antzekoa** (10); **oso antzekoa** (109); **oso antzekoa da** (29); **zuenaren antzekoa** (9)

antzekoak dira (102); **antzekoak direla** (27); **antzekoak diren** (19); **antzekoak eta** (13); **antzekoak izan** (30); **antzekoak izan ziren** (10); **antzekoak izango** (19); **antzekoak izango dira** (9); **antzekoak izaten** (11); **antzekoak ziren** (40); **baten antzekoak** (12); **elkarren antzekoak** (12); **ere antzekoak** (17); **eta antzekoak** (133); **horien antzekoak** (13); **nahiko antzekoak** (12); **oso antzekoak** (82); **oso antzekoak dira** (19); **oso antzekoak direla** (10)

antzekoren bat (12)

antzekorik ez (12); **ez antzekorik** (9)

---

antzekotasun 1 *iz* antzekoa denaren nolakotasuna.

XVII. eta XVIII. mendeetan, anatomia konparatuak eta fisiologiak apurka-apurka atzeman dituzte zenbait **antzekotasun**, antolamenduari eta funtzioari dagozkienak, organismo taldeen artean. Juan Garzia

Gauzaren eta objektuaren arteko **antzekotasun** hori, objektu berorren baitan [...] Poztasunezko nahiz Tristurazko afektu batez kontenplatu dugu. Piarres Xarriton

Errusiar intelligentsiak jada burgesiaren aurka hartua zuen norabide horren argitan, merezi du agian Mendebaldekoak ez ziren intelligentsien eta Mendebaldeko klase ertainaren arteko **antzekotasun** eta desberdintasunei erreparatzea. Iñaki Mendiguren

Batxilerreko seigarren kurtsoa hasi berria zenean ohartu ziren, beraz, **antzekotasun** eta kidetasun hartaz. Joan Mari Irigoien

Parekatzen diren hitzak ez dira oraingoan berdin idazten, ezta ahoskatzen ere, baina antz handia dute eta **antzekotasun** hori agerian geratzen da. Iñaki Arranz

Arrainaren eta gizakiaren DNAk %87ko bateragarritasuna dute, eta **antzekotasun** horrek ikerketen baliagarritasuna ziurtatzen du. Iñaki Arranz

Andres Hurtadoren familiak eta don Píorenak berarenak badute **antzekotasun** bat baino gehiago: [...]. Josu Zabaleta

Beste **antzekotasun** bat topatu dute orain Georgiako ikertzaileek. Berria - Gaiak

Zelula horiek, oso eginkizun desberdinak badituzte ere, **antzekotasun** batzuk ere badituzte oinarrian, eta ez da harritzekoa, beraz, arnasa hartzeko halako gaitasun bat

izatea epidermisak. Irene Aldasoro

Ez da ez *logos* ez *noesi*, ez da mintzamenaren edo adimenaren gaia; ez da ez zenbakia ez ordena, ez handiera ez txikiera, ez berdintasuna ez desberdintasuna, ez **antzekotasun** ez desantzekotasuna. Joan Mari Lekuona

Antzekotasunek, aurrerago, **antzekotasun** sakonagoei utziko diete tartea, konpartitutako pasio zorrotzagoei, konplexuagoei, bereziagoei, edo bitxiagoei. Lander Garro

Haren esanetan, Euskal Herriak eta herri ijitoak **antzekotasun** ugari dituzte, "bi herriotako biztanleak migratzaileak izan baitira". Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Biek betaurreko biribilak erabiltzea: hori zen **antzekotasun** bakarra, eta nahasbiderako bultzagarria. Xabier Mendiguren Elizegi

Jaiotza data lehena besterik ez da bi zuzendariak partekatzen dituzten **antzekotasun** ugarien artean, Korrespondentziak erakusketak egiaztatzen duen bezala. Berria - Kultura

Katalanek eta euskaldunok **antzekotasun** handiak ditugula esan dut arestian. Koldo Zuazo

Elkarrizketatutako idazleak gertaera eta bizipen askok lotzen ditu baina ezin da esan **antzekotasun** handiko idazleak direnik. Ana Urkiza

Ez da bat eta bera Elorriagaren eta Magdalenaren literatura egiteko modua, baina badute **antzekotasun** sakonik, funtsean, literatura eta bizitzaren aurreko jarrerari. Berria - Kultura

Izan ere, **antzekotasun** bitxiak daude gure artean, Harry Potter. Iñaki Mendiguren

Tales konturatu da eguzkiak berdin tratatzen dituela munduko gauza guztiak: **antzekotasun** betean murgildurik zegoen. Jon Muñoz

Antzekotasun grafikoa edota fonetikoa ahalik handiena bilatze horrek hiru oihartzun motatara garamatza. Iñaki Arranz

Robert Lopezek "Bi Mediterraneo" horien arteko **antzekotasun** geografikoa -hegoaldekoaren eta iparraldekoaren artekoa- azpimarratzen du; Hurbileko espezieak aztergai harturik, familia beraren baitan, **antzekotasun** nabarmenak aurkitzen ditugu garapenean. Koro Navarro

Pertzepzio-jarraitasunaren oinarrian dagoen inbariantzaren hipotesiaren **antzekotasun** formala. Josu Zabaleta

Esanahien analogiaren gainean ezar daiteke elkarketa [...], edo alderantziz, hots irudien **antzekotasun** soilean. Isabel Arrigain

Askotan sortu izan dira psikologia laborategietan pertsonek irudi mentala eta pertzepzioa nahasten dituzten egoerak, itxuraz bi horien artean halako **antzekotasun** funtzionalen bat ba ote den pentsarazten dutenak. Josu Zabaleta

Antzekotasun harrigarri asko dago espartar eta otomandar sistemen artean. Iñaki Mendiguren

Zerabiltzaten gogoetek, jokamoldeek, irizpideek, eta esamoldeek ere **antzekotasun** izugarria ageri zuten. Mirentxu Larrañaga

Nire iritzi, gramatika-egituraren aurkikuntzak bete behar omen dituen urratsen artean eta hizkuntz teoriaren garapenaren artean legokeen **antzekotasun** erratu batek eman dio indarra. Berria - Gaiak

Analogia formalen joko edo **antzekotasun** semantikoen bidez. Xabier Arregi

Izan liteke, baina **antzekotasun** hori axaleko eta anekdotikoa da eraginaz mintzatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Jakintsuak inondik ere ez duela eginbeharrekoak betetzeari uko egiten esaten zuten, bere jokabide arauak errespetatzen baititu; baina hala ere egia, izadiaren ilunagatik edota **antzekotasun** iruzurtiengatik, ezkutuan eta nahasita zegoela. Imanol Unzurrunzaga

Estrategia hori arrakastatsua izan dadin, A eta B objektuak antzekoak direla (eta, ondorioz, biak triangeluak) diogunean, eta A eta C ere antzekoak direla (eta, ondorioz, biak triangeluak) diogunean, bi kasu horietan aipatzen ditugun **antzekotasunek antzekotasun** bera izan behar dute. Askoren artean

Izan begitarteak, izan gorpuzkerak, zerbaitek halako bulkada magiko batez erakartzen zuen; **antzekotasun** gisako bat izan zitekeen, begiak bainoago bihotza hunkitzen zuena. Patxi Zubizarreta

Ustezko **antzekotasun** horiek zalantzan dagoen irakurlea Perutzen liburuetara hurbiltzera bultzatzeko balio badute, tira; baina argi gera bedi Perutzen lanak ez duela bestelako amarrurik behar zalearen arreta eskuratzeko. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zehaztasun handiz definitzen dituzte **antzekotasun**-irizpideak. Josu Zabaleta

Interpositibotasun konfigurazio bat ez da auzokoak diren diziplinen multzoa; ez da **antzekotasun**-fenomeno behagarri hutsa. Xabier Arregi

Baina **antzekotasun**-puntu horiek nabarmen uzten dituzte desberdintasun-puntu harrigarri batzuk ere. Iñaki Mendiguren

"Aitak" Batasuna esan nahi du, zeinetan **antzekotasun**-gogoa baretzen baita eta itzaltzen izateko grina oro. Joan Mari Lekuona

Antzekotasun-puntu harrigarri bat, bigarren ekitaldian, Mendebalde modernoko kultura sekularizatuaren harrera behetik gorantz hasi izana da, bai Txinan eta bai Japonian. Iñaki Mendiguren

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Formen ugaritasunaren atzean, ordea, egitura- eta funtzio-**antzekotasun** harrigarri bat hautematen dugu. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzekotasun bat (4); **antzekotasun fonetikoa** (3); **antzekotasun gehiago ere** (3); **antzekotasun gutxi** (3); **antzekotasun handia** (5); **antzekotasun handiagoa** (4); **antzekotasun handiak** (8); **antzekotasun hori** (4); **antzekotasun nabarmenak** (3); **antzekotasun puntu** (3); **antzekotasun ugari** (3); **arteko antzekotasun** (7); **badute antzekotasun** (3); **baina antzekotasun** (4); **horiek antzekotasun** (3)

arteko antzekotasuna ez (3); **duen antzekotasuna** (3)

antzekotasunak eta desberdintasunak (4); **artean antzekotasunak** (3); **funtsezko antzekotasunak** (5)

badu antzekotasunik (4); **badute antzekotasunik** (4)

---

antzekotu, antzeko(tu), antzekotzen du *ad* antzeko bihurtu.

Kristorekin **antzekotzen** zuten bertute ugariak, zer ziren Kristorekin bat egiteko bide eta haren zauri sakratuak hartzeko prestaera moduko bat baino? Askoren artean

· Orduan gertatzen da ezen, halako batean gure zerura iristean, andeatu, bere **antzekotu** eta gure etsai bihurtzen duela. Xabier Amuriza

---

antzelan *iz* antzerki lana.

Arriaga antzokiak antzerkia eta dantzari buruzko programazio zabala aurkeztu du Auzoko Txarteldegirako; besteak beste, George Momboye dantza konpainiaren *Adjaya* ikuskizuna eta Eve Enslerren *Monólogos de una vagina* **antzelana** ekarriko ditu Bilbora. Berria - Kultura

Sakonegia da izadiaren eta **antzelanaren** arteko leizea, asmamen handieneko ingeniariarentzat ere. Irene Aldasoro

---

antzeman, antzematen *(orobat **antz eman** g.er.)* **1** du/dio *ad* gutxi gorabehera bederen nabaritu edo igarri.

Berak antolaturiko meteorologia tailertxo bat eratu du Zarautzen, eta hor dabil itsasoko eguraldi aldagaiei erreparatzen, galernak eta antzerakoak nondik **antzemango**. Pello Zabala

Neska gazte bat zen hura, izenez Miren, berak argitu zidanez, eta adinez nire modutsukoa, neronek **antzeman** nionez. Xabier Mendiguren Elizegi

Zerbait gertatzen zela **antzeman** nion. Juan Kruz Igerabide

"Hemendik, hemendik! " esango du beti baten batek, gainerakoak bide zuzenari **antzeman** ezinik dabiltzanean. Xabier Mendiguren Elizegi

Paperezko zapiarekin pasa zituen ezpainak eta beste zurrutada bat eman zion ardoari, zerbait bazetorrela **antzemanda**. Unai Iturriaga

Itxarotea diot, atrebimenduz, joera horri **antzematen** zaizkion traza guztiak aurkitu bainituen nik Troskiren ibileran. Lander Garro

Bestetik, hemen bezala, helendarren filosofiarentzat ohikoa baino soka luzeagoa onartzen denean, helendarren filosofiaren hastapenak garai zaharragoetan **antzematen** direnean, autoritate arkaikoen auzia sortzen da. Askoren artean

Profetak erantzi zuen berehala begiak estaltzen zizkion zapia, eta Israelgo erregeak **antzeman** zion profetetariko bat zela. Elizen arteko biblia

Itxurazaleok! Badakizue zeru-lurren itxurari **antzematen** , eta nola ez diozue **antzematen** garai honi? Pello Zabala

Adibide hauetan, gramatika formaldatzailearen berezko ezaugarri batzuk **antzeman** ditzakegu. Itziar Laka

Lehen behakoan, tak **antzematen** dio pozik eta kontent utzi behar duen horri. Aingeru Epaltza

Ezin nuen tragediarik **antzeman** inon. Pako Aristi

Lasaitasun hits bat **antzeman** zuen haren begi grisetan. Pablo Sastre

Ia zirkinik egin gabe zegoen eserita, eta noizean behin soilik, ezin **antzemanezko** mugimendua eginez, hatzez ukitzen zuen eskuin eskuko erdiko hatzean zeukan marra sakona, arestian kendutako eraztun baten arrastoa. Jose Morales

Atalburutik pasatzean atezaina sumatu nuen bere garitako leihatilatik zelatan, eta irribarre okertuan halako bozkario bat **antzeman** nion, barre-haize bat. Joxean Agirre

Egunero **antzematen** zuten Italiarren esku atsegin hura, eta xehetasunik hutsalenetan. Bernardo Atxaga

Eta begiei erreparatuta, ez litzateke aise **antzemango** . Jon Alonso

Ikusten dudanean segituan **antzematen** diot talentuari, neuk ez dudan arren. Koro Navarro

Jadanik ez zen gauza egunsentiaren kolore leunez margoturiko akuarela samurrari **antzemateko** . Karlos Zabala

Arrebek eskuak soinean gurutzatuta jarri zizkioten, hatz hura falta zuenik **antzeman** ez ziezaion. Jon Maia

Zakurrak nagusia burutsua denetz berehala **antzematen** dio. Gotzon Garate

Istiluaren zalaparta zabaldu da berehala giroan, pauso arin batzuk **antzeman** dituzue pasilloan barrena; zuen bila datoz. Rafa Egiguren

Ez zen zaila **antzematea** kanoi-zuloetako balek zekarten sutautsa. Lutxo Egia

Haren aurpegian ez zen **antzematen** alboko gela aztertu zuenik, eta hizkeran ere ez zen aldaketarik izan. Ibon Uribarri

Ezin haren sudurrari **antzeman** , ezin begiak ikusi. Patxi Zubizarreta

Honezkero **antzemango** zenidaten, ni neu liluratuta geratu naizela SPrako tranbia irakurrita. Unai Elorriaga

Ehuneko laurogeik ez du bere kontzientziari traiziorik egin eta bere iritziak baztertu nahi izan, baina berehalaxe **antzeman** dira ondorioak. Josu Zabaleta

Lan honetan **antzematen** zaizkio horren zantzu batzuk, eta ondorengoetan are nabarmenagoa da hori guztia. Urtzi Urrutikoetxea

-Ba nik **antzeman** ere ez diot egiten agurearen gu hona etorrarazteko arrazoiari. Aitor Arana

Oholen artean trenbideko argiei dirdaika **antzeman** dakieke. Monika Etxebarria

Lehenbiziko xurgaldian bake-une labur bat **antzeman** nion, ke goxoaren oroitzapen berritua birikak zeharkatzen. Aingeru Epaltza

Gauzak kontatzen dizkigu berez datorkion mintzairaz eta, denbora berean, ongi **antzematen** zaio hizkuntza landu duela. Janbattitt Dirassar

Oroitu nintzen, Orthezera agertu nintzen egunean ere **antzeman** zidala agure horrek bertze norbaiten eitea. Aingeru Epaltza

Ahurrari orduan lika ikusezin baten gisako izerdia ateratzen zaio, aise **antzematen** ahal zaiona urre edo zilarrezko txanpon bat ezarriaz. Xabier Olarra

Eta gaur egun, bi oztopo nagusi daudela **antzeman** nuen: adina (oraindik ere gai hau tabua da) eta drogak. Ana Urkiza

Barruko ilunpe grisbeltzetik, leihoko argitasunaren kontra, Goioren buru ilegorri eta aurpegi zurbila **antzematen** da. Joseba Sarrionandia

Iluntasuna eta kea **antzematen** da beste aldean, sartu bezain laster, iluntasuna, kea, larruzko txupak, praka estuak, gandor gorri arteza, kateak eta giltzarrapoak. Sonia Gonzalez

Begiratu nola egiten dudan barre: begiratu leihora, tunelean sartzen garenean, kristalean egiten dudan islari **antzemateko** , badaezpada ere. Javi Cillero

-Ez diozu ezer **antzeman** ? -xuxurlatu zuen Hofrat Klementik misteriotsuki-. Anton Garikano

Aldaketa askoz lehenagotik zetorren ordea, eta Txomin Agirrek bazekien, baita **antzeman** ere, ondotik zetorrena oso gustuko ez izan arren. Xabier Mendiguren Elizegi

Haren kulpante nor zen berehala **antzemango** zioten, seguru asko, baina mutila urruti, kristautasunaren aldeko gurutzaldian tiro botatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Eritegian herioari zain zegoen lasai asko, argal-argal, larrua hezurretan itsatsia, lepo aldean eta, zetaka beztakak **antzematen** zitzaizkiola. Gotzon Garate

Izan ere, hain zen tipikoa eta aurrez **antzemateko** modukoa! Xabier Mendiguren Elizegi

Herri batzarrek, hala ere, berehala **antzeman** zuten legeria zibila kodetzeko premia, eta horretan jardun, xedez eta helburuz. Andres Urrutia

Zera galdetzen zion Olivierrek bere buruari: emazteak **antzemango** ote zuen zerbait. Harkaitz Cano

Cecily, berriz, **antzeman** ezingo dituan errespetuzko arrazoiengatik osaba deitzen didana, nire landetxean bizi duk, Miss Prism irakasle miresgarriaren ardurapean. Antton Olano

Urrutitik **antzematen** zitzaion maiteminak jota zegoela, hain zegoen bere baitara bildua eta inguruko kontuez axolagabe. Joxerra Garzia

-Bada, nik esango diat hiri, **antzematen** zaiok gizon ikasia dela, eta etorri handikoa, baina infernuko hauspoaren kontu hori ez duk horrela. Pako Aristi

Antzematen zaio ez dela inguru hauetakoa, ezta? Arantxa Iturbe

Ahotsean **antzeman** nion aitari txantxetarako umorerik ez zuela. Jesus Mari Mendizabal

Dibortzioa nabarmena da, eta egunero **antzeman** daiteke. Txema Ramirez de la Piscina

Berriz ere ikusi ez duzun irribarrea **antzeman** duzu Luisen ahotsean eta, eskuineko besoa luzatuz, ukabilkada txiki bat ematen diozu besaburua baino beheraxeago.

Hazia zainetan gora zetorkidala sentitzean, atzera eginez atera nahi izan nuen taketa alu hezetik, baina izebak **antzeman** egin zidan eta eskuez ipurditik eutsi bere sabelaren kontra. Aitor Arana

Jeinua lokarturik, emakumea besoak gurutze eta zer suma geratu zen, baina luze gabe zuhaitzaren gainean bi anaiei **antzeman** zielarik, jeinuaren burua lurrean pausatu, eta jaisteko agindu zien. Patxi Zubizarreta

Urte pare baten buruan ezkondu ziren, krisi zantzuren bat bai baina etortzeko zegoena **antzeman** ezinik. Urtzi Urrutikoeetxea

Nolatan ez nion Monari aurpegian **antzeman** zer gertatuko zen? Fernando Rey

Bestela ari denari gutxi-gehiago **antzeman** egiten dio entzuleak, eta ez du behar hainbesteko komunikaziorik lortuko. Andoni Egaña

Oraindik segundo batzuk behar izan ditu Abelek ahotsari **antzemateko** . Pello Lizarralde

Irudimenean nuen, hala ere, elkarrizketa hartan **antzemandako** une laburretako irudi argia. Joan Mari Irigoien

Haren jokabidean, haren itxuran, haren izaera osoan, zerbait **antzeman** zitekeen batez ere, eta aurki ohartu zen horretaz tsarra, hots, "aginduak betetzeko" sortua zela. Karlos Zabala

2 *ezin antzemanezko adlag*

Ia zirkinik egin gabe zegoen eserita, eta noizean behin soilik, ezin **antzemanezko** mugimendua eginez, hatzez ukitzen zuen eskuin eskuko erdiko hatzean zeukan marra sakona, arestian kendutako eraztun baten arrastoa. Jose Morales

Jainkoaren bideak ezin **antzemanezkoak** dira, David. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

antzeman ahal (16); **antzeman ahal izan** (10); **antzeman behar** (10); **antzeman daiteke** (25); **antzeman daitezke** (11); **antzeman dio** (10); **antzeman diot** (10); **antzeman diozu** (7); **antzeman ditu** (9); **antzeman dituzte** (9); **antzeman du** (21); **antzeman dut** (14); **antzeman dute** (10); **antzeman egin** (9); **antzeman egiten** (12); **antzeman ez** (18); **antzeman ezin** (7); **antzeman ezinik** (6); **antzeman genuen** (7); **antzeman izan** (7); **antzeman nahian** (8); **antzeman nien** (6); **antzeman nion** (47); **antzeman nuen** (25); **antzeman orduko** (5); **antzeman ote** (7); **antzeman uste** (6); **antzeman zekiokeen** (6); **antzeman zen** (6); **antzeman zer** (6); **antzeman zezakeen** (6); **antzeman zien** (5); **antzeman zion** (62); **antzeman zioten** (14); **antzeman zitekeen** (12); **antzeman zituen** (11); **antzeman zituzten** (11); **antzeman zitzaion** (6); **antzeman zuen** (51); **antzeman zuenean** (5); **antzeman zuten** (20); **bat antzeman** (30); **bati antzeman** (9); **batzuk antzeman** (8); **berehala antzeman** (24); **ezer antzeman** (5); **ezin antzeman** (10); **hori antzeman** (5); **hutsunea antzeman** (6); **hutsunea antzeman zuen** (6); **nola antzeman** (6); **segituan antzeman** (5); **zerbait antzeman** (9); **zerbaiten hutsunea antzeman** (6)

antzemanez gero (5)

---

antzemanezin *izond* ezin antzemanezkoa.

Hanna oso sentibera zen, suminkorra oso, tenperamentu **antzemanezin** horietako bat; Joachimek zioen bezala: maniako-depresiboa. Joxe Austin Arrieta

Baita gaztetasunaren funtsa den eta haren ahotsean hain soinu argia egiten zuen zer **antzemanezin** hori ere. haren ahotsak aldaketa ilaun bat jasan zuen, aldaketa ia **antzemanezin** bat, baina guztiz erreala. Jose Morales

Dena zegoen beterik, dena ekinean, ez zegoen hutsarterik, dena, ikara **antzemanezinena** ere, existentziaz egina zen. Monika Etxebarria

Bihotz-taupaden antzeko mugimendu txiki bat, **antzemanezina** ia, sentitzen duzu behatz-muturretan ireki eta ixten. Rafa Egiguren

-Bufff -erantzuten zuen Txatok, itsaso zabala bezain **antzemanezina** zen hots bat ateraz. Jon Alonso

Misterioa ia beti **antzemanezina** zela esan zuen, eta Blake baten edo Hölderlin baten sakontasuna erdiesteko nahitaezkoa zela, talentu berezia ez ezik, Tibeteko monjeena bezalako prestakuntza luzea eta lasaia. Bernardo Atxaga

-Zeuk ikusi, baina ez ahantzi Samandal erregearen aldartea oso aldakorra dela, eta haren erreakzioak **antzemanezinak**. Patxi Zubizarreta

Dena eleek izaten duten osagairik **antzemanezinenaren** ildotik, hizkuntzalariek edo psikolinguistek nekez deskriba dezaketen hizkuntzaren alderik berezienetik abiatuta. Berria - Kultura

Giza pentsamendua haren ernaldien ustekabe zorioneko bat baizik ez da, zoko batean gertatutako ustekabe igarokor, **antzemanezin**, lurrarekin batera desagertzera kondenatua. Josu Zabaleta

Durundi ozenez bete zuten erromatar silabek lurrezko patioa; nire beldurrak **antzemanezin**, amaiezintzat zeuzkan. Juan Garzia

---

antzemangaitz *izond* antzematen gaitza.

Oso minutu gutxitan, frantsesetik ingelesera pasatu zen eta ingelesetik, berriz, Salonika-ko espainieraren eta Makao-ko portugesaren halako elkarketa **antzemangaitz** batera. Juan Garzia

Nire ustez, askoz garrantzitsuagoa da barru-barruko beste eskema **antzemangaitz** horien kontra borrokatzea. Joxerra Garzia

Erantzun hartako bi esaldien arteko lotura **antzemangaitza** hausnartzen gelditu nintzen, zehaztasun gehiago galdetzeko kikilduegi. Alberto Ladron Arana

Dozenaka anpoila etiketadunak aurkitu nituen, Astolfok Ilargian bezala, ehunka konposatu **antzemangaitzak**, bestelako sedimentu anonimo, itxura zenez aspaldiko belaunaldietatik ukitu gabeak, baina sodiorik batere ez. Juan Garzia

Isba barruan, "zedro-esnea" edaten, kazetariarekin hizketan ari eta, bat-batean txoko ilun bateko ikono **antzemangaitzengana** jiratu, otoi aldi bat egiten zuten. Pablo Sastre

Labirinto zirkular horietatik konprobazio bitxi batek salbatzen du, eta bestelako labirinto are **antzemangaitzago** batzuetan amilarazten. Juan Garzia

Mutilaren begitarte meheak, non begi distiratsuak zimur **antzemangaitzen** sare batean atzituak baitzituen, aurrera zegien atergabe, neskaren aurpegirantz, bapore baten branka irudi. Lopez de Arana

Orbain bana geratu zitzaidan eskuin eskuko gainalde nahiz ahurrean (denbora pasa ahala **antzemangaitzagoak**), eta txakurrekiko mesfidantza bat buru barreneko zolan itsatsita, maite baditut ere kontaktu estua eragozten didana. Xabier Mendiguren Elizegi

---

antzemangarri *izond* antzeman daitekeena.

Rasputinek beste ikur batzuk aurkitu zituen orduan: aurrekoaren antzekoak batzuk, **antzemangarriagoak** besteak -zuhaitzak, adibidez-, eta baita bitxi eta deskribaezinak zirenak ere. Iban Zaldua

Zientzia horren zailtasunetan ordea, musikaren edertasun ortodoxo eta erraz **antzemangarrietan** baino areago. Koro Navarro

---

antzemate *iz* adimenaren bidez sumatzea.

Antzemate analitikoak. Askoren artean

Antzemate orokorrak. Askoren artean

· Baina Espainiako Gobernuarekiko harremanean beste autonomia erkidego arrunten pare agertzea, edo horrela agertzeari uko egitea esanahitsua izango da, PSOEk bultzatu nahi duen erreforma prozesuan Ibarretxek izango duen jokamoldea **antzemate** aldera. Berria - Euskal Herria

---

antzera *(orobat **antzora** g.er.)* **1** *adlag* era bertsuan, gisara.

Antzera gertatu zitzaion amari ere. Xabier Montoia

Antzera izaten dira galduak denboraren poderioan giza oroitzapenak oro; ustekabeko une batean, ordea, argi izpi bat iritsi, eta orduan ikusten dugu aurpegi ahaztu berbera. Xabier Olarra

Antzera mintzatu zen Jose Izquierdo ezker hegalekoa ere, baina epaileen lanarekin pazientzia apur bat eduki behar dela esan zuen: "Ea hobetzen hasten diren, talde guztiak berdin epai ditzaten". Berria - Kirola

Antzera aritu zen Piepoli, erasoak jo baino gehiago, erasoen bila irten bazen ere. Berria - Kirola

Antzera gertatzen da beste gaixotasun batzuekin ere: behin ikusi nuen nola jarri zioten apomorfina-ziztada bat ezagutzen dudan parkinsondun bati, zurruntasuna eta "izoztea" arintzeko: handik bi minutura desizoztu zen, eta irribarreka esan zuen: "Ahaztu zait parkinsondunak bezala ibiltzen". Xabier Olarra

Nik ere, jaio ondoren, guztion airea arnastu nuen eta, denoi **antzera** eusten digun lurrera etortzean, nire lehen mintzoa guztiona izan zen: negarra. Elizen arteko biblia

Antzera jokatu zuen beste behartsu batekin. Askoren artean

Aurten **antzera** gertatu zaio, eta beharbada okerrago. Berria - Kirola

Futbolean **antzera** pasatzen da: epailea beti irizpide berarekin jarduten da; baina, nahi gabe bada ere, errazagoa da Osasunaren aurkako penaltia adieraztea Real Madrilen aurkakoa baino. Berria - Kirola

Leon Handia aita santuak (K.o. 440-61) **antzera** ikusten zuen Erromatar Inperioa, kristautasunaren hedapena errazteko Jainkoak probidentzialki agindua. Iñaki Mendiguren

Emeak, gertaera hori ikusitakoan, **antzera** egiten du eta, supituan lehertuz, bazter guztiak betetzen ditu espermatozoide azkarren aukeran geratzen diren obuluz. Hasier Etxeberria

Ligan ere **antzera** gerta liteke hiruzpalau partidako kanporaketa luze batean. Berria - Kirola

Eta **antzera** jokatzen zuen arratsaldeetan ere, ikastolatik bueltatzen nintzenean. Xabier Montoia

Athletic ere **antzera** dabilela iruditzen zait. Berria - Kirola

Kaleak hutsik zeuden eta etxera eraman ninduen tranbia ere, **antzera**. Anjel Lertxundi

Planteatu bakarrik egingo ditut, adibide **antzera**. Joxe Azurmendi

Horregatik kezkak, tesi **antzera** agertuak. Pello Salaburu

Lanak ematen zizkigun esaldiak txukun **antzera** josteak, gerra ez zela amaitu, eta zazpigarren kalkoraino bakarrik irakur zitekeen, bazter utzi genuen paperketarena. Koldo Izagirre

Bai, jende asko gara, ideiak bakan; denek pentsatzen dugu oso **antzera**, arrunt aisa hartzen edo lapurtzen dizkiogu ideiak elkarri. Patziku Perurena

Begiratuko zien txoriei, eta aspertu **antzera** jarraituko zuen beraien hegaldia, aurreko garaietan bezalaxe, berdin-berdin. Bernardo Atxaga

Iharra, motz **antzera** gelditzen zitzaizkion mahukek iharrago zuten egiten. Koldo Izagirre

Babeslea edozein izanda ere, behin indartsu ekiten ikasita, zergatik ez **antzera** jarraitu, garaipen batzuk lortu eta aurrerantzean lasaiago korritzen saiatu? Berria - Kirola

Ea nirekin **antzera** gertatzen den. Berria - Kirola

Atzo Labriten egin zuen azken saioa Belokik, hogei bat minutuz piloteoan aritu zen bi eskuekin, arin **antzera** hasieran, eta indartsuago ondoren. Berria - Kirola

2 (-en atzikiaren eskuinean)

Lan-saio oso interesgarri baina beti bezala aspergarri samar baten ostean, kafea hartzen eta berriketan ari ginen, afalondoan, neu eta neure **antzera** zeregin hoberik ez zeukaten beste batzuk. Xabier Mendiguren Elizegi

Bagdad-eko gauetako jardinetan barrena alderrai zebilen kalifaren **antzera**, abentura misteriotsuak desiratu zituen, jakingura baitzen kontakizun ezezagunez eta pertsona arrotzez. Juan Garzia

Parkeko gure eserlekuan, mimosen azpian, Peneloperen **antzera**, niretzat trikota egiten. Hasier Etxeberria

Stephenek, J.D.ren **antzera**, trebetasun miragarria zuen forma abstraktuak ezagutzeko eta ikusmenezko analisirako. Xabier Olarra

Ardoak gaindituriko gizonaren **antzera**. Xabier Kintana

Denek hire **antzera** jokatuko balute, ez lukek inortxo ere geratuko zerbitzuan. Jose Morales

Haiek bezain zabarki esertzen ziren damen aldamenean; haien **antzera**, frantsesez hitz egiten zuten, eta Petersburgen bezalaxe barre eragiten zieten damei. Jose Morales

Neurri handi batean atzerriko ereduen arabera hezi bazuten ere, atsegin zitzaion jaun errusiarren **antzera** jokatzea. Jose Morales

Kontua da erabakitasunez jo zuela aurrerantz, jende artean igarobidea urratuz eta ezeri erreparatu gabe, gotorleku bat indarrez hartzera doan gerlariaren **antzera**. Jose Morales

Koldarren **antzera** ospa egin du, ni, hura amorrarazteko, hankako behatzak pixka bat zapaltzera deliberatu baino lehen. Xabier Olarra

Bueltaka eta balantzaka, mozkorraren **antzera**, beren trebetasun guztia alferrik zutela. Elizen arteko biblia

Postaburuak oharrarazi zuen Txitxikovek betebehar sakratua zeukala aurrean, aita baten **antzera** jokatu behar zuela bere nekazariekin. Jose Morales

Pertsona guztien **antzera** dudarik gabe pertsona konplikatu bat. Itxaro Borda

Denbora galduaren bila ote nabil, beste harako magdalenazale haren **antzera**? Juan Kruz Igerabide

Zergatik zabiltza ezkutuka gizon izutuaren **antzera**, garaipena lortzeko gauza ez den gudaria bezala? Elizen arteko biblia

Begi-distira horrek bihotzetik heltzen badik, arimaren barreneraino sartuko zaik gezi baten **antzera**. Jose Morales

Gero, nagiki, logurak erreta dagoenaren **antzera**, atzetik hurbildu zitzaion nagusiari eta, bizkor, behin eta berriro sartu zion aiztoa bizkarrean. Jose Morales

Bitartean, aldamenean daukanak gauza garrantzitsuei buruz hitz egiten dik beste batekin, zanbuluka eta hankei ezker-eskuin eraginez, ahuntz baten **antzera**. Jose Morales

Jokalari bakoitzak bere garrantzia du, xakeko piezen **antzera**. Berria - Kirola

Zaila izanen du, besteen **antzera** jokatuz, desberdina dela sinestaraztea. Hasier Etxeberria

Naturak, beraz, janari guztiak gorputz bizi bihurtzen ditu eta hemendik sortzen du bizidunen sentimen guztia, egun idorra garretan irekitzen eta gauza guztiak su bihurtzen dituen **antzera**. Xabier Amuriza

Halako batean, zerbait irabazi-ustean galtzen ari zarelako sentimenduak harrapatzen dizu pixkanaka burua, lurrun kirastu baten **antzora**. Iñaki Segurola

Jaunari atsegin ez zaiona egin zuen, Akaben senitartekoen **antzera**; Senideok, ez dugu nahi hildakoen zoriari buruz zuek ezjakinean egoterik, atsekabe ez zaitezten, itxaropenik ez dutenen **antzera**. Elizen arteko biblia

3 (-en atzikiaren eskuinean, abereekin)

Gas-lanparak, katuen **antzera**, patxadan egiten zuen urruma. Lopez de Arana

Arranoaren **antzera** oldartzen da etsaia, Botzraren gainera hegoak zabalduz. Elizen arteko biblia

Zekorren **antzera** salto eragiten die Libanoko mendiei, bufalokumearen **antzera** Sirion mendiari. Elizen arteko biblia

Lehoiak lastoa jango du, idiaren **antzera**.

Makurtu eta luze etzaten da lehoiaren **antzera**, lehoi-emearen **antzera**. Elizen arteko biblia

Busti beza zeruko ihintzak eta bizi bedi horrela zazpi urtez basapiztien **antzera**. Elizen arteko biblia

Zoo bateko tximinoen **antzera** sentitu dugu geure burua. Xabier Montoia

Inurri nekaezinen **antzera**, bidean aurkituriko enbor lodi-lodi bat baitzeraman lepoan, bere izbarantz. Jose Morales

Zerrien **antzera** gobernatzen naiz, zerrien **antzera**! Jose Morales

Inguruko herrien antzeko egin ziren, Jainkoak haien **antzera** ez jokatzeko agindu zien arren. Elizen arteko biblia

Azkeneko trenean iritsitako gizonak burumakur sartzen ziren auzo ilunean, eta areto bero lurrintsuetan galtzen ziren, ipotx nekatuen **antzera**. Juan Kruz Igerabide

Espetxetik epaiketara daramatenaren **antzera** nindoan: soa lurrari iltzatua, edo, zehazkiago, hegazkineko zurubiari: ni sartu eta berehalaxe jaregin eta baztertu zuten berau. Joxe Austin Arrieta

Orduan, gazela izutuaren **antzera** ibiliko da jendea, artzain gabeko artalde sakabanatuaren **antzera**. Elizen arteko biblia

4 (-en atzikiaren eskuinean, gauzekin)

Larrazken bukaeran abarrari lotu hostoaren **antzera** ikara zen suprefeta, bonba zuzendua zitzaiola konturatu zenean. Itxaro Borda

Erlijio erlikien **antzera**, armek indar berezia ditek -pentsatu nuen-, garunen baitako hari ezkutu, sakon-sakonen bat joko balute bezala. Alberto Ladron Arana

Ez dut nehoiz trebezia hori ukan, beti hein bat gogoz kontra zorri-zaku itxurako elkarte eta ekintzetan leporaino sartu naizelako, urak daroatzan haritz erraldoietarik haizeak hautsi eta erori abartxoen **antzera**. Itxaro Borda

Horregatik, txirularen **antzera** dardaraz daukat bihotza Moabengatik. Elizen arteko biblia

Jaunaren arnasak emango dio su, sufre-bolada baten **antzera**. Elizen arteko biblia

Eta katua haize bolada leun baten **antzera** etortzen zitzaion, arin eta isil, eta amonaren lepo bueltan etzaten zen. Patxi Zubizarreta

Seme horietako bat uholde baten **antzera** sartuko da bere gudariekin hegoaldeko mugetan barrena. Elizen arteko biblia

Zuk haize eman eta itsasoak irentsi ditu; ekaitz-uretan hondoratu dira berunaren **antzera**. Elizen arteko biblia

Bularrekoari urre garbizko katetxoak egin zizkioten soka bihurrituen **antzera**. Elizen arteko biblia

Urrin iraunkorra zen, larruazalari zeta finaren **antzera** itsasten zitzaiona. Karlos Zabala

Otso tzar baten ahoak irentsiko banindu bezala, garai batean -txiki-txikia nintzelarik- irudikatzen nuen **antzera**, otsoak sei antxumeak jaten zituen hartan. Juan Kruz Igerabide

Ibai-Ertz aurkeztu ondoren kontatu dut hura sendiko nuela, amonaren lehengusu; Lotsati agerrarazi dut gero, aurretik gordea neukan karta ezkutuaren **antzera**. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizabanakoaren gorputzean badira, alde batetik, xede berezia duten atal batzuk: batzuek elikatze-organoen **antzera**, banakoaren kontserbazioa dute helburu; beste batzuek, hala nola ugaltzeko organoek, espeziearen irautea; eta are beste batzuk ere, hala nola eskuak eta begiak, gizakiak elikatzeko eta gisa bereko beste gauza batzuetarako behar dituen baliabideak lortu ahal izateko zuzenduak. Xabier Kintana

Gudari trebearen gezien **antzera**, ez dute huts egingo. Elizen arteko biblia

Uholde baten **antzera** etorriko da azkena. Elizen arteko biblia

"Nor da Nilo bezala hazten den hori, ibai oldartsuen **antzera** harrotzen den hori? Elizen arteko biblia

Bularrekoari urre garbizko katetxoak egin zizkioten soka bihurrituen **antzera**. Elizen arteko biblia

Amets sakonean erori aurretik gailur garai eta zuriak ikusi zituen, hodeien gainetik sartaldean behera zihoan ilargiaren argitara, uharte flotagarrien **antzera** dirdiratzen. Agustin Otsoa

5 ***antzerako*** *izlag*

Antzerako ohiturak bazituzten Palestinan bertan ere, Hebrongo artadian-eta: garaitsu berean eta debeku bertsuekin, hala arropari eta sexualitateari buruzkoak nola imajinak

garbitzekoak ere. Pello Zabala

Antzerako irakurketa egiten saiatu naiz Lazarragaren eskuizkribuaren aurkikuntzarekin. Berria - Kultura

Hotz gorriak Europako kontinentean barna, lehor eta minduta iristen zaizkigu **antzerako** egoera horietan. Pello Zabala

Ezkurra-Ionek eta Zeberio II.a-Auzmendik **antzerako** pilotak aukeratu dituzte biharko finalerako. Berria - Kirola

Antzerako partidak izan ziren: txarrak biak. Berria - Kirola

Gainerako zer guztiak **antzerako** gogokeraz errepasaturik, aurkituko duzu gorputzek gauza askoren haziak gordetzen dituztela eta forma ezberdinak dauzkatela barruan. Xabier Amuriza

Benetan ez da harritzekoa estatu unibertsaletan **antzerako** erakundeak aurkitzea "Txinatik Peruraino". Iñaki Mendiguren

Eta gorpuzkera erabat ezberdina izanda ere, **antzerako** dohainak dituzten bi atzelari dira Zearra eta Eulate. Berria - Kirola

Oraindik orain, **antzerako** arazo bati egin behar izan dio aurre Kirmen Uribek "Bar Puerto" ikuskizunean ondarrutarrez jasotako adierazpenekin. Iñigo Aranbarri

Beren historiako krisi **antzerako** horietan juduek eta parsiek beren nortasuna gorde zuten erakunde berriak asmatuz eta jarduera berrietan espezializatuz. Iñaki Mendiguren

Zalantzarik gabe zientzia bakar bati dagokionean bakarrik ezingo dira bereizi atalase ezberdin hauek eta ezingo da atalase hauen artean deskribatu **antzerako** desdoitze-multzo bat. Xabier Arregi

Halako eta **antzerako** gauzak maiz entzun arren, nire kontsolamendua ez zen erabatekoa izaten. Hasier Etxeberria

2001etik aurrera Woomeran (Australia) gobernuak kontzentrazio-esparruen **antzerako** paperik gabeko etorkinentzako atxilotze-zentro bat izan zuen martxan. Berria - Gaiak

Ateko Zaindariek tunika beltzak eta itxura arraroko kasketak zeramatzaten: burutoki altukoak eta masailen aurka estu-estu ipinitako belarri-estalki luzeekin, amaieran itsas hegaztien hego zuriak zituztenak; baina kaskoek zilarrezko sugarraren **antzerako** distira zuten, zalantzarik gabe mithrilez egindakoak baitziren, bestelako garaietako handitasunaren oroigarri. Agustin Otsoa

Ez diozu jaramonik egin nik esandakoari -toxa atzamar soil pareaz hamar zentimetro goratu eta, garabi baten **antzerako** jira emanez, lurrera jausten utzi zuen. Josu Landa

Oskolik gabeko barraskilo baten **antzerako** zerbait baizik ez naiz, pentsatzen zuen, lika, beratz, hauskor, zaurigarri. Jon Alonso

Gaur egun, Microsoften Windows XP aplikazioak ere **antzerako** aukerak ematen die ikusmen arazoak pairatzen dituztenei. Berria - Euskal Herria

Oso **antzerako** bilakaera eramango nuen Euskadi Irratian bertan ere. Pello Zabala

Joxerra Garziak inoiz edo behin idatzi izan duenez, hamabost urte lehenago oso **antzerako** gaia jarri zioten Uztapideri: "ama". Andoni Egaña

"gau", "ezkutatu", "diru", "kartzela", "amets" (hori, haatik, "bahalòm" esapidean bakarrik ia, hots, "ametsetan", horixe eransten baitzaio, burlaizez, solaskideak -eta hark bakarrik- alderantziz ulertu behar duen baieztapen bati), "lapurtu", "urkatu", eta beste **antzerako** batzuk. Juan Garzia

Beste oso **antzerako** esaera, eta loturarik badukena, gero ikusiko dugunez, honakoa da: Ilargin bosta nolakoa, illabetea alakoa. Pello Zabala

· *(izenondo gisa)* Erreakzio **antzerako** horrekin amaitu zen lehen zatia. Berria - Kirola

6 ***antzerakoxe*** *izlag*

Antzerakoxe planto batekin eten nituen harmonia ikasketak ere: baina, hori bai, lan pare bat aurkeztu norgehiagokan eta, lehen saria irabaztean, banekien harmonia-lanetan ongi nenbilena. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amaren antzera (4); **animalien antzera** (7); **antzera abiatu** (4); **antzera ari zen** (3); **antzera aritu zen** (4); **antzera bere** (4); **antzera beste** (3); **antzera bizi nahi** (3); **antzera biziko** (3); **antzera burua** (3); **antzera dago** (4); **antzera dardaraz** (3); **antzera daude** (4); **antzera edo** (7); **antzera egin zuen** (9); **antzera egingo** (5); **antzera egiten du** (4); **antzera egiten zuen** (3); **antzera egongo** (4); **antzera ere** (3); **antzera etorri** (5); **antzera ez** (5); **antzera funtzionatzen** (4); **antzera gerta** (3); **antzera gertatu zen** (7); **antzera gertatzen da** (9); **antzera hartzen** (3); **antzera hasi zen** (9); **antzera hasi ziren** (4); **antzera hil** (3); **antzera hitz egin** (8); **antzera hitz egiten** (3); **antzera ia** (3); **antzera ibili ziren** (3); **antzera ibiliko** (4); **antzera ibiltzen** (4); **antzera igotzen** (3); **antzera ikusi** (3); **antzera ikusten** (5); **antzera izango** (3); **antzera jarraitzen** (4); **antzera jokatu beharko** (3); **antzera jokatu du** (4); **antzera jokatu zuen** (9); **antzera jokatu zuten** (3); **antzera jokatuz** (3); **antzera jokatzea** (3); **antzera jokatzen du** (3); **antzera jokatzen dute** (3); **antzera jokatzen zuen** (5); **antzera mintzatu da** (11); **antzera mintzatu zen** (19); **antzera mintzo da** (3); **antzera mugitzen** (4); **antzera pasatzen** (3); **antzera pentsatzen** (5); **antzera samar** (3); **antzera sentitu** (4); **antzera tratatzen** (3); **antzera ulertzen** (3); **arin baten antzera** (3); **arranoaren antzera** (5); **askoren antzera** (10); **athleticen antzera** (5); **aurten antzera** (3)

baten antzera ari (6); **baten antzera egin** (3); **baten antzera egiten** (5); **baten antzera erori** (3); **baten antzera joka** (3); **baten antzera jokatu** (3); **baten antzera jokatzen** (5); **baten antzera sartzen** (3); **baten antzera sentitzen** (4); **baten antzera utzi** (3); **baten antzera zegoen** (3); **beltz baten antzera** (3); **berdin antzera** (3); **bere antzera** (7); **berri baten antzera** (3); **beste batzuen antzera** (3); **besteen antzera** (5); **bien antzera** (3); **bizitzaren antzera** (4); **dabilenaren antzera** (3); **dagoenaren antzera** (8); **dakienaren antzera** (3); **denak antzera** (3); **denaren antzera** (7); **diren antzera** (8); **direnen antzera** (3); **distiratsu baten antzera** (3); **dituen antzera** (7); **doanaren antzera** (3); **duenaren antzera** (21); **dutenen antzera** (3); **egin zuen antzera** (3); **egiten den antzera** (3); **egiten duen antzera** (4)

egiten duten antzera (8); **eguzkiaren antzera** (3); **en antzera** (4); **ere antzera dabil** (3); **ere antzera gertatu** (4); **ere antzera gertatzen** (4); **ere antzera hasi** (4); **ere antzera mintzatu** (19); **erraldoi baten antzera** (5); **eulien antzera** (3); **film baten antzera** (3); **gainerakoen antzera** (3); **gaixoaren antzera** (4); **gehienen antzera** (7); **gertatu zen antzera** (3); **gertatzen den antzera** (9); **gezi baten antzera** (3); **gizonen antzera** (3); **globo baten antzera** (3); **gure antzera** (9); **guztiaren antzera** (3); **guztien antzera** (25); **handi baten antzera** (4); **handien antzera** (3); **haur baten antzera** (4); **haurraren antzera** (3); **haurren antzera** (3); **hildakoen antzera** (3); **honen antzera** (3); **horien antzera** (11); **horren antzera** (8); **hotz baten antzera** (7); **ibaiaren antzera** (4); **iltze baten antzera** (3); **irudien antzera** (4); **izarren antzera** (4); **jaunaren antzera** (3); **katu baten antzera** (4); **katuen antzera** (3); **kriseilu piztuaren antzera** (3); **kristoren antzera** (6)

lapur baten antzera (6); **lasai antzera** (3); **lehoiaren antzera** (4); **mamu baten antzera** (3); **mamuen antzera** (3); **melkisedeken antzera** (7); **mosaiko baten antzera** (3); **neure antzera** (4); **nuen antzera** (3); **ohi duen antzera** (3); **oldartsuen antzera** (3); **oso antzera** (13); **otsoen antzera** (3); **pailazoen antzera** (4); **pilota baten antzera** (3); **realaren antzera** (3); **ren antzera** (5); **saldo baten antzera** (3); **suaren antzera** (3); **suge baten antzera** (3); **trumoien antzera** (3); **txakur baten antzera** (3); **txikien antzera** (4); **tximistaren antzera** (3); **txukun antzera** (3); **uholde baten antzera** (8); **ume baten antzera** (4); **umearen antzera** (4); **umeen antzera** (6); **zaharren antzera** (7); **zaku baten antzera** (3); **zakurren antzera** (3); **zerrien antzera** (4); **zezen baten antzera** (4); **zuenaren antzera** (4); **zure antzera** (8); **zurien antzera** (3); **zuten antzera** (3)

ere antzeratsu (4)

---

antzeratsu *adlag* gutxi gorabehera antzera.

Antzeratsu Tibeteko goi-ordokiak ia gotorleku iristezin bat eskaintzen zuen desagertua zen Gizarte Indikoaren mahayaniar fosil tantrikoarentzat. Iñaki Mendiguren

Antzeratsu kontatzen da beti: eskolan euskaraz egitea debekatuta dago, eta debekua hausten duenak eraztuna jantzi beharko du, egin duen bekatu edo krimenaren seinale, harik eta beste ikaskideren bat euskaraz hitz egiten harrapatu eta seinalea hari pasatzen dion arte. Joxerra Garzia

Gasteizko alkate Alfonso Alonso ere **antzeratsu** mintzatu zen eta erasoari "gaitzespenik gogorrena" agertu zion. Berria - Euskal Herria

Beste lantegi batzuetan ere **antzeratsu** aritu dela ziurtatu zuen enpresa batzordeak. Berria - Ekonomia

Antzeratsu, Erroman ("xxxx"), iraultza ez da hasiko ideia grekoek inbaditu duten arte, eta gero ere ez da oso sakona izango. Joxe Azurmendi

Antzeratsu, Pax Hanica-k mundu sinikoan eskainitako aukerengatik lehian jardun zuten erlijio proletario indiko batek -mahayanak- eta bertako erlijio proletario sinikoa zen taoismoak. Iñaki Mendiguren

Autobusarena gertatu zen egunean **antzeratsu** egon zen, nerbioak airean. Jokin Muñoz

Bigarren zatiari ekin eta **antzeratsu** joan zen neurketa, harik eta, ordu laurdena falta zela, nik hegaletik erdiraketa itxi bat egin nuen arte: Errealaren atezainak, baina, huts egin zuen, eta era hartan lortu genuen berdinketa. Joan Mari Irigoien

Karmenengan aldaketa hain nabarmena izaten ez bazen ere, **antzeratsu** gertatzen zitzaion. Xabier Montoia

Epaileek puntuaketan Joselu izan zela garaile erabaki zuten, eta **antzeratsu** jazo zen hurrengo bietan ere. Josu Landa

Baina tabako-lainoa argitzen den bakoitzean **antzeratsu** jarraitzen du denak: argi zuriak tunelaren goialdean, eta ilara luzea aurrean, auto garestiak, furgonetak, kamioiren bat, banatzaileenak, dekorazio garestiko tunningak makina-musikaz gogaituta jadanik. Urtzi Urrutikoeetxea

Delhi ez zen haien lehenengo hiriburua, baina aurrekoa ere, Agra, **antzeratsu**, erdialdeko tokia zen. Iñaki Mendiguren

Ortzirala bertzeen kontrakoa, ziotsaten Iparraldean, eta Goierri aldean ere **antzeratsu**: Ostirala aste guzin kontrakoa. Pello Zabala

Espainiako Ligaren **antzeratsu**, ondoegi aritu ez diren taldeek jardun dute egoskorren fitxaketak egiten Europan. Berria - Kirola

Pilula psikorekatzaile batzuk eman dizkidate lasai nadin, poztu nadin -leher nadin? -egun seinalatuotan, baina, hala ere, ezin ditut melankonia eta tristura ondo bereizi, infernua

eta zerua ere ondo bereizten ez diren **antzeratsu**. Anjel Lertxundi

---

antzeratu, antzera(tu) antzeratzen du *ad* antzera egin, imitatu.

Kapelaren azpian, zeinaren txirikordak domina-xingola bat **antzeratu** nahi baitzuen, aurpegi bat luzatzen zen, eta haren ondotik lepo luzeluze bat. Xabier Olarra

Horren ordez, pantomima bat idazten hasi nintzen Simplicissimus aldizkari satirikoko estiloa **antzeratu** nahian. Anjel Lertxundi

"Ba al dakizu, kutuna?" -Imanolen osabaren sudur-ahotsa **antzeratu** zuen-. Fernando Morillo

Ahots apal-apalez, patioko iturriko ura eta Ruche jaunaren aulkiaren karranka **antzeratu** zituen. Jon Muñoz

Halako arrandiaz eta marrumaz jarduten, non pentsatu baitut naturaren alogereko beharginen batzuek eginak ote zituzten jendeak, eta ondo asmatu ez, hain dorpeki baitzuten **antzeratu** gizakia. Juan Garzia

Zaitak, axolagabekeria itxuratuz, hizketa molde nahigabetua **antzeratu** nahian: [...]. Patxi Zubizarreta

Horra, beraz, babarrun efektua, *Bohneffekt* delakoa, osorik eta betean laboratorioan **antzeratua**. Juan Garzia

Txori burlati bat gurutzatu zen lur arras eta intziri egin zuen haur baten antsia **antzeratuz**. Juan Garzia

Sterling Haydenena, esaterako, oso ongi zegoen ikusteko, baina lapur bilakatutako baserritar baten piurak **antzeratzea** bere ahalmenetatik kanpo zegoen, guztiz. Jon Alonso

Hala nola diren haurtxoarengan maitagarriak helduen ibilera **antzeratzeko** ahalegin baldarrak. Jose Morales

Gauza nauk horiek **antzeratzeko**. Jon Muñoz

Frantsesez, totelka eta sudur-mintzoz hitz egiten dute; ingelesez, berriz, txorien doinua **antzeratzen** dute, eta fisionomiaz ere txori bihurtzen dira, eta, gainera, barre egiten dute txori-fisionomia hartzeko gai ez direnen lepotik. Jose Morales

Jenio moduko bat, **antzeratzen** duen edozeri harrapatzeko forma-ezaugarriak, egitura-logika, estiloa, "hau-tasuna" (ez, ordea esanahia). Xabier Olarra

Gazte alemanon eredua zen, haren estiloa **antzeratzen** genuen. Anjel Lertxundi

Bevan jauna **antzeratzen** ibili ginen gelan atzera eta aurrera, eta pixka batean borrokan aritu ginen alfonbraren gainean. Koro Navarro

Eta amaren hizketa moldea **antzeratuz**, neskatxak osteratu zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Aktore batzuek mozkortiaren imintzioak **antzeratzen** zituztela zirudien. Juan Garzia

-Ruche jaunaren akordea! - iragarri zuen Maxek, Nofuturen ahots erlastuaz, gero eta hobeto **antzeratzen** baitzuen. Jon Muñoz

Matrix-eko fotograma bat azaltzen da pantailan: Triniti, hegazti baten hegaldia **antzeratzen**. Antton Olano

Hori gertatzen zaidanean, neure buruari galdetzen diot: "Neure ahotsarekin ari naiz, ala norbaitena **antzeratzen**? Ana Urkiza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antzeratu nahian** (4); **antzeratu zuen** (3)

---

antzeratze *iz*

Susmoak berandu samar etorri zitzaizkien, beharbada, eta Berlinera eraman eta mikroskopioz egindako hainbat azterketak garbi utzi zuten eskuizkribu haiek antigoaleko idazkien **antzeratze** hutsak zirela. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

antzerki 1 *iz* antzerti lana. ik **teatro**.

Nire **antzerkia** jokatzen diot! Ramuntxo Etxeberri

Erran nahi baita, gizon zuhurrari dagokiola, janari eta edari goxoak hartuz, izarian, bere burua indarberritzea eta suspertzea, eta orobat lurrinez, etxeko landareen graziaz, apainduraz, musikaz, gorputza lantzeko jokoez, **antzerkiez** eta horrelako beste gauzez, nehori kalterik egin gabe balia daitezkeenez baliatzea. Piarres Xarriton

Nire neskak harrituta begiratu zidan (ni ez naiz gure jolasaldietan **antzerkiak** asmatzen dituen horietakoa), eta bere eskua nire sexuraino jaitsi eta ferekatzen hasi zitzaidan, nik bere alutxo maitea gogotsu miazten eta mutilaren zakilkadak sentitzen nituen bitartean. Juan Martin Elexpuru

Edo musikan, edo **antzerkian**, edo lagun arteko elkarrizketa batean, edo nik dakita non. Iñigo Aranbarri

Orduan, erabakita baldin baduzu zinean lan egin nahi duzula, joan New Yorkera eta **antzerkian** lan egin. Fernando Rey

Orduan, **antzerkiko** hizketa moldea antzeratuz: Patxi Zubizarreta

Literaturan nekez sortzen da ezer hutsetik, eta Queneauk ere bazuen, oso urrutira joan gabe, nondik zer hartua, esate baterako Edmond Rostanden Cyrano de Bergerac **antzerkiko** pasarte ospetsuan, Cyranok erantzun hau ematen dionean beraren sudurraz trufatzen ari denari: Xabier Olarra

Antzerkira joan, terrazetan eseri. Jokin Muñoz

Kutsidazu bidea, Ixabel **antzerkira** moldatu eta ezin sinisturik gaude gertatzen ari dena. Joxean Sagaztizabal

Eta **antzerkietan** pantomima aktoreek hitzik gabe istorio osoak dantzaz eta pantomimaz kontatzen eta adierazten dizkigute. Imanol Unzurrunzaga

Garai hartan, hain zuzen, **antzerkia** zen literatura-adierazpen nagusietariko bat, komedia zein tragedia. Juan Garzia

Antzerkigile, izø Frantsesetik **antzerkiak** egokitzen dituena. Xabier Olarra

Luigi semea, ordea, literatura zaleago zen, sufre ustiatzaile eta saltzaile baino; hamabi urte zituela bost ekitalditako tragedia bat idatzi zuen: urte askoan bazterturik izango zuen **antzerkirako** trebezia baten lehen adierazpena. Josu Zabaleta

Kasurako: **antzerki** egiten ari deneantxe ez ote da ari serioen? Juan Garzia

Xelebretan xelebrea, **antzerkirako** eta imitaziorako dohain apartak zituen. Xabier Etxabe

Orduan haiengana joan eta han ez zegoela erretzerik, "mesedez andereño", eskatu zion, erdi **antzerkian**, aspaldiko ezagunak izan behar zuten. Koldo Izagirre

Lotsa hau ez da jokatzen ari naizen **antzerkia**. Josu Zabaleta

Antzerkia egiten ere jartzen gintuen, eta, judua nintzela jakin baino hiruzpalau hilabete lehenago, Schiller-en Gaizkileak tragediako Franz Moor-ena egin nuen, arrakasta handiz, gymnasiumeko teatro-aretoan. Anjel Lertxundi

Antzerkiak du bereziki garrantzia, beldurra eta urrikia pizten dituelako modu artifizialean. Askoren artean

-Ez, ez duk elizgizona, **antzerkiko** neskekin ateratzen duk. Koro Navarro

Orduan, niri kendutako koadernoetatik poemaren bat edo beste irakurtzen zuen Juliok, **antzerkia** egiten ari balitz bezala imintzio nabarmen haiek eginez. Juan Kruz Igerabide

Nazkatuta ninduten, leporaino beteta, egunero tratatu behar nituen artista, idazle, musikari, aktore, zinema edo **antzerki** zuzendari, bertsolari, dantzari eta abarrek. Juan Luis Zabala

Dagoeneko **antzerkirako** jantzita daude batzuk. Anjel Lertxundi

Unibertsitate-egoitzako neska batzuek **antzerkirako** sarrera bat sobera zuten eta gonbidatu egin ninduten gau batean. Joseba Urteaga

Joan den astean bezala, Weinerrekin **antzerkira** joan hintzenean. Anton Garikano

Ez zait begitantzen zentzuzkoa, Azkoitiko **antzerki** talde batek, Azkoitian bertan jokatu beharreko antzerkilanean, bertakoa ez den hizkera erabiltzea. Koldo Zuazo

-Ez duk ba **antzerkiarekin** hasteko asmorik izango? - kezkatuta. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gogora zetorkidan nola **antzerki** bat ikusten egon eta gero bokadilloak jatera joan ginen eta nola kitsch-ari buruzko xinplekeriak esaten aritu ginen. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere aitari zor zizkion irakurtzeko eta **antzerki** edo literaturarako zaletasunak ere. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Begiak itxi zituen, gorputzez baizik hango **antzerki** hartan ez zuela parte hartzen adierazi nahian bezala. Felipe Juaristi

Ohartu zenean nirekin jai dagoela pinturaz, **antzerkiaz** eta horrelakoez jardunez gero, negozio-gizon gisa mintzatu zen, ez lotsagabe, baina bai pragmatiko, suitzar erara, alegia, eta halaxe izan ere: suitzarraøø. Joxe Austin Arrieta

Ez daukat kemenik **antzerkia** egiten jarraitzeko, neure ukoan bildu nahi dut. Agurtzane Juanena

2 (izenondoekin)

Ea ba, Berlusgoñi, erantzun ezazu hau: zertarako bahitu dute katarrek Jefea, edo Guebokinder Artximandrita, dena **antzerki** hutsa bazen, adiskideak direnez? Jon Alonso

Bere silueta irudikatzen du, hormaren kontra itzal-**antzerki** txinatarra egiten duenaren erara, argal eta zuri, zeruak bidalitako aingeru eroria legez, hegal bustidun aingerua legez. Sonia Gonzalez

-Antonia San Juanen Emakumeen Unibertsoa, Irungo **antzerki** gaztearen erakusketara dator. Joxerra Garzia

Borroka, berriz, **antzerki** hutsa izan liteke, estatu kolpe eta parrizidioa legitimatzeko amarrua. Martin Anso

-Geldi! Egiaz uste ote dun erakarri egin duela hire **antzerki** barregarri horrek? Askoz erakargarriagoa haiz iraintzen naunanean edota arrain ustela bezala tratatzen naunanean. Joxan Elosegi

Aspaldiko **antzerki** zahar hau, hagitz ongi gogoratu berria digu Eduardo Gil Berak ere: Patziku Perurena

Antzerki handi bateko funtzio orokorrean papera ulertu barik jokatzen ari dela iruditu zaio Sergeiri. Urtzi Urrutikoeetxea

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondo begiraturik, begiaren norabidea koadroaren hondotik aurrealdera eramanik, tropa bat baino, alemanek maite zuten gizon armatuen multzoa baino, **antzerki** konpainia dirudi gehiago: iluntasun eta itzal artetik argira, bizitzaren azpi-azpian ezkuturik dagoen anabasatik ordena geometriko berrira doan komediante-konpainia. Felipe Juaristi

"Nire eginbeharra bete": bai esapide gogor eta **antzerki** kutsukoa. Ander Irizar

-Ez beldurtu, mutiko -erran zidan Hilde andereak, **antzerki** emanaldi bat ikusten ariko balitz bezain lasai. Alberto Ladron Arana

Solasak halako **antzerki** kutsua zuen. Aingeru Epaltza

Oihalak eta olioak utzi, eta brotxa latza eskuan hartuta, etxeak margotuko zituen edo **antzerki** konpainia baterako eszenografia egingo. Xabier Montoia

Hamabost ipuin bilduma (hirurehundik gora ipuin), sei eleberri, hiru bidaia liburu, bi **antzerki** obra, ehundaka kronika, hamabi urtetan. Josu Zabaleta

Entzun zen, **antzerki** -guduen aurretik bezala, turuta-deiadarraldi goibel bat. Juan Garzia

Gaur gauean etortzekoa zinela esan zenidanean, hitzordu asko utzi nuen bertan behera, **antzerki** -saio bat, besteak beste. Mirentxu Larrañaga

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tupustean gogoratu zituen jolasak eta irribarreak, itsas ertzean oinutsik eginiko kilometro amaigabeak, eskutik helduta eginiko familia **antzerkiak** ... Aritz Gorrotxategi

-Txotxongilo **antzerkia** egitera -esan zuen maniobraburuak-. Fernando Rey

2 ***absurdoaren antzerki*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***42*** *agerraldi)*

Absurduaren antzerkia 1940ko, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan zehar hainbat europar eta estatubatuar antzerkigileek idatzitako antzezlan multzo bat da. ETC-entziklopedia

Ez zen desesperazioa sentitzen nuena, **absurduaren antzerkiko** pertsonaia bat nintzelako kontzientzia baizik. ETC-literatura, saiakera

Bere lorpenik handiena Europako joerak eta **absurduaren antzerkia** Txinan sartu izana dira. ETC-prentsa

Ia mende erdi geroago euskarara egokitzen den antzezlan hau "**absurduaren antzerkia** " deritzon estiloan sailkatu ohi da. ETC-prentsa

Absurduaren antzerkitik gertu daude zure idazlanak, ezta? ETC-prentsa

Absurduaren antzerkitik gertu dago Samara Velteren lana; umorea erabilita, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko gogoeta fina egitea da helburua. ETC-prentsa

Laster, antzerkiak erakarrita, Txejoven eta Samuel Becketten **absurduaren antzerkiak** batez ere, haien obrak muntatu zituen Los Angelesko antzoki batean. ETC-prentsa

Garai batean, hiru ildo nagusi ikusten ziren antzerkiaren munduan, hiru prozesu artikulatu: antzerki dramatikoa, antzerki epikoa, eta **absurduaren antzerkia** . ETC-prentsa

Eta behingoz benetako zentzua eman zion berak hainbatetan jorratutako **absurduaren antzerkiari** , bi protagonistek bizi duten egoera absurdua benetako gertakizunetan oinarrituz. ETC-prentsa

Aurten hogei urte Eugène Ionesco, **absurduaren antzerkiaren** beste aita, hil zela. ETC-prentsa

3 ***antzerki aktore***

Ateak zabal-zabalik zeuzkan zinema ala **antzerki aktoreentzat** , enpresari boteretsuentzat, familia dirudun premuentzat, politikarientzat, Hollywood-etik bisitan zebiltzan izar amerikarrentzat... Ramuntxo Etxeberri

4 ***antzerki amateur***

antzerki amateurrak aurreko urteetan baino leku handiagoa izango du aurten Azpeitian, eta Pako Aristik mugimendu horren inguruko kazetaritza liburua egin du, 'bokadillo baten truke'. Berria - Kultura

Pertsona biren arteko maitasun desioari buruzko lanarekin sartu dira **antzerki amateurraren** zirkuito bilbotarrean, eta saio bana egingo dute, Errekalden eta Santutxun. Berria - Kultura

Guztira, 1.565 izan ziren profesionalenak eta 1.070, berriz, **antzerki amateurreko** saioak. Berria - Kultura

5 ***antzerki biomekanika***

Antzerki biomekanika : Meyerholdek eta Cechovek zehazturiko **biomekanikaren** printzipioetan oin hartuko du Roberto Romei italiarrak, **Antzerki Biomekanikaren** gaineko mintegia gidatzeko. Berria - Kultura

Antzerki biomekanika Errusian sortu zen, 20ko hamarkadan. Berria - Kultura

Kathakali antzerki-dantza, **antzerki biomekanika** , esperimentazio musikala, antzerki antropologia eta laborategia eta labirintoa ikerketagai dituztela, mintegi bana ematen ari dira. Berria - Kultura

Euskal aktoreen elkarteak antolatuta, **antzerk biomekanikari** buruzko mintzaldia eman zuen Roberto Romeik Bilbon orain dela urtebete. Berria - Kultura

6 ***antzerki epiko*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***24*** *agerraldi)*

Antzerki epikoa XX. mendearen lehen erdialdean Alemanian sortutako antzerki-mugimendua da. Bertolt Brecht antzerkigile alemanaren lanei eta teoriei loturik da bereziki ezagun, baina haren aurrekariak eta ondorengoak ere kontuan hartu beharrekoak dira hartaz aritzean; aipagarrienak Max Reinhardt and Erwin Piscator. ETC-entziklopedia

Garai batean, hiru ildo nagusi ikusten ziren antzerkiaren munduan, hiru prozesu artikulatu: antzerki dramatikoa, **antzerki epikoa** , eta absurduaren antzerkia. ETC-prentsa

Antzerki epiko eta espresionistaren adibide bikainenetako bat da. ETC-prentsa

Antzerki epikoaren alde egin zuen hark. ETC-prentsa

Amancio Ortegaren igoera kontatzen duen **antzerki epiko** bikain batean datza, pertsonaia horren mentalitatea eta bere jatorrizko lurraldearen gainean izan zuen eragina erakutsiz. ETC-literatura, saiakera

Brecht-ek gizartea aldatu nahi zuen antzerkiaren bidez, eta helburu horretarako, Aristoteles-engandik zetorren heroiarekiko enpatia kaltegarria zela ulertu zuen, eta Verfremdung Effekt delakoa garatu zuen bere **Antzerki Epikoan** aplikatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 ***antzerki espresionista*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi* ***1*** *)*

Obran horretan **antzerki espresionistaren** aitzindaritzat har daitezkeen zenbait ezaugarri antzematen zaizkio. ETC-entziklopedia

8 ***antzerki labur***

Gau Beilako **antzerki laburrak** prestatzen dituzte, Pantzo Irigaray-en "Porru salda" ikusgarritik behexiak. Herria

9 ***antzerki lan*** *(orobat* ***antzerkilan*** *g.er.) iz*

'Gau bakar bat' **antzerki lana** kaleratu berri du Ixiar Rozasek, munduaren egungo egoeraren inguruko hausnarketa kritiko eta poetikoa. Berria - Kultura

Antzerki lan bat sortzen hasten denetik antzokietara heldu arte bide luzea egin behar izaten dute antzerki taldeek, eta horretan ezinbestekoa izaten da merkaturatzea. Berria - Kultura

Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz eta Hiria argitaletxearen eskutik, berak idatzitako nobela baten eta hiru **antzerki lanen** gaztelaniazko itzulpenak plazaratu ditu Karlos del Olmo idazle eta itzultzaileak. Berria - Kultura

Ez zait begitantzen zentzuzkoa, Azkoitiko antzerki talde batek, Azkoitian bertan jokatu beharreko **antzerkilanean**, bertakoa ez den hizkera erabiltzea. Koldo Zuazo

Ez zait begitantzen zentzuzkoa, Azkoitiko antzerki talde batek, Azkoitian bertan jokatu beharreko **antzerkilanean**, bertakoa ez den hizkera erabiltzea. Koldo Zuazo

10 *antzerki talde*

Petit Théâtre de Pain **antzerki taldeak** bere azken sorkuntza aurkeztuko du lehen aldikotz martxoaren 6 an, larunbat aratseko 9 etan, Izpuran, Faustin Bentaberry gelan. Herria

-Hogei bat urtez gazteekin ibili zira, bereziki **antzerki taldeetan**; gauza ona da, ez? Menane Oxandabaratz

Preteknologia edota Gimnasiako klase-orduetan izaten ziren saioak, eta **antzerki taldean** sartzeko nota onak izan behar ziren. Iban Zaldua

Varsoviako geltokian hango kale-**antzerki talde** batek egin zigun harrera. Edorta Jimenez

Antzerki taldekide batzuk baserri kalamastra batean jarri ziren bizitzen. Javi Cillero

Edo antzerkia egiten ari ote zen, euskal munduan arrakasta handia duen **antzerki talde** batean sartua baitabil gaur egun. Joan Mari Irigoien

Ez zait begitantzen zentzuzkoa, Azkoitiko **antzerki talde** batek, Azkoitian bertan jokatu beharreko antzerkilanean, bertakoa ez den hizkera erabiltzea. Koldo Zuazo

Bai, Azpeitian Lakrikun izeneko **antzerki talde** bat dago eta han aritzen naiz. Berria - Kultura

Zortzi euskal **antzerki taldek**, hasi berriak, hainbat antzezlan taularatuko dituzte Bilboko auzuneetan antzerkia herritarrei gerturatzeko saioan. Berria - Kultura

11 *antzerki zuzendari*

Landurik zuen lehenago, eta aldaketak ere egin zizkion beranduago, **antzerki zuzendariek** nola aktoreek eskatuta. Berria - Kultura

Algis Arlauskas **antzerki zuzendari** eta gidoilaria pozik agertu zen bileraren ondoren. Berria - Kultura

Hain zuzen ere, Pirandelloren obran, antzerki-idazlearen eragina ez ezik, Pirandello **antzerki-zuzendariaren** esperientzia azaltzen baita. Josu Zabaleta

Nazkatuta ninduten, leporaino beteta, egunero tratatu behar nituen artista, idazle, musikari, aktore, zinema edo **antzerki zuzendari**, bertsolari, dantzari eta abarrek. Juan Luis Zabala

12 *irri antzerki*

Kantu eta **irri antzerki** . Herria

Beste hitzorduen artean, Ados Teatro taldeak Antzara salda karrikako **irri antzerkia** emanen du hiru hizkuntzetan maiatzaren 22an Sokoburuko merkatuan. Berria - Kultura

Ez duzu **irri antzerki** bateko tonto lapikoa izan nahi, ezta? Karlos Zabala

13 *itzal antzerki*

Bere silueta irudikatzen du, hormaren kontra **itzal-antzerki** txinatarra egiten duenaren erara, argal eta zuri, zeruak bidalitako aingeru eroria legez, hegal bustidun aingerua legez. Sonia Gonzalez

Alderantziz, ordea, askoz ere aldakorragoak ziren bestelako irudi batzuk, **itzal antzerkikoak**, esate baterako, bakunak eta garatu gabeak ziren figurazioari dagokionez, eta abar. Josu Zabaleta

Kaleko autoen argiak erdizka itxitako pertsianaren zirrikituetatik sartzen ziren, eta **itzal antzerkia** osatzen zuten logelako sabaian. Fernando Morillo

14 *kale antzerki*

Eguerditan izanen da **kale antzerkia**, ondotik pintxo lehiaketa eta jastatze. Herria

Varsoviako geltokian hango **kale-antzerki** talde batek egin zigun harrera. Edorta Jimenez

Hipotesi hori defenditzen duen antzerki obra batek jarriko du abian, uztailaren 9an, Lekeitioko Nazioarteko **Kale Antzerki** Jaialdia. Berria - Kultura

Lehenengo taldeak **kale antzerkiaren** arloko saria irabazi du, Chup Suey lanarekin; bigarrenak, berriz, aretoan egindako antzerkiaren arlokoa, Solala lanarekin. Berria - Kultura

15 *no antzerki* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ez badakite, hobe dut **No antzerkia** egin!. ETC-prentsa

No antzerkia ekartzen dit gogora, kodifikazioa hain urrun pusatua baita zangoetatik begitartera, erietatik pasatuz. ETC-literatura, saiakera

Nolanahi den, **no antzerkian**, kantaria ez da berriz taularatzen txaloak jasotzeko, bestela ere gutxitxo izaten dira beti. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

antzerki amateurraren (7); **antzerki antropologia** (6); **antzerki azoka** (6); **antzerki bat** (52); **antzerki baten** (7); **antzerki berria** (7); **antzerki dantza** (12); **antzerki emanaldi** (20); **antzerki emanaldia** (5); **antzerki emanaldiak** (11); **antzerki eskola** (7); **antzerki eskolako** (9); **antzerki eskolan** (7); **antzerki eta** (59); **antzerki eta dantza** (15); **antzerki eta kantu** (6); **antzerki ferian** (8); **antzerki festibala** (29); **antzerki hau** (7); **antzerki honen** (6); **antzerki hori** (6); **antzerki hunek** (6); **antzerki hutsa** (6); **antzerki idazle** (6); **antzerki ikusgarri** (6); **antzerki ikusgarria** (5); **antzerki jaialdia** (10); **antzerki jaialdiak** (5); **antzerki jaialdian** (12); **antzerki jaialdiko** (5); **antzerki jardunaldiak** (7); **antzerki jardunaldietan** (8); **antzerki klasikoaren** (5); **antzerki konpainia** (8); **antzerki konpainiak** (6); **antzerki lan** (63); **antzerki lan bat** (12); **antzerki lana** (40); **antzerki lanak** (33); **antzerki lanaren** (8); **antzerki mota** (10); **antzerki munduan** (7); **antzerki obra** (41); **antzerki obra bat** (5); **antzerki obrak** (7); **antzerki obran** (5); **antzerki obraren** (5); **antzerki saria** (14); **antzerki tailerrak** (6); **antzerki talde** (32); **antzerki taldea** (25); **antzerki taldeak** (71); **antzerki taldeak emanen** (6); **antzerki taldearekin** (7); **antzerki taldearen** (21); **antzerki taldeek** (11); **antzerki taldeen** (7); **antzerki taldeko** (10); **antzerki testuen** (7); **antzerki topaketak** (5); **antzerki topaketetan** (6); **antzerki zikloa** (5); **antzerki zuzendari** (6); **arnagako antzerki festibala** (6); **bere antzerki** (5); **beste antzerki** (10); **euskal antzerki** (21); **euskarazko antzerki** (7); **gure antzerki** (5); **izeneko antzerki** (8); **kale antzerki** (20); **kantu eta antzerki** (8); **lehen antzerki** (5); **musika eta antzerki** (7); **nazioarteko antzerki** (15); **nazioarteko kale antzerki** (7); **zinema eta antzerki** (7)

---

antzerkialdi *iz* antzerti lanak ematen diren aldia.

Kafe Antzokiko Zenbat Gara elkarteak antolatuta, Gilkitxaro taldearen *Elevator* (Igogailua) antzezlanarekin abiatuko da Bilboeszena 2004 **antzerkialdia**, hilaren 23an. Berria - Kultura

Maiatzeko **Antzerkialdiak** Zuberoako hiri nagusiaren areto eta kaleak harrotuko ditu asteburuan. Berria - Kultura

Antzerkialdiaren estreina, berriz, 19: 00etan izango da pilota plazan. Berria - Kultura

Azken hauetatik izango da, hain zuzen, **antzerkialdiaren** azken egunean Bilboko Markeliñe konpainia profesionalak antzeztuko duen Carbon Club kale ikusgaia. Berria - Kultura

---

antzerkigile 1 *iz* antzerti lanak idazten dituen pertsona.

Elejiraren helburua da, gure dantzari, kirolari, intelektual, kantari, **antzerkigile** eta hizlariak mugimenduan jartzea, eta sortzen duten kultura ezagutaraztea. Patziku Perurena

Rafael Villasús jaun hura gizagaixo bat zen, bertsozko komedia eta drama negargarriak idazten zituen **antzerkigilea**. Josu Zabaleta

Baziren **antzerkigileak**, eta baziren aktoreak, antzerki lanak prestatu zituztenak. Felipe Juaristi

Oliver Goldsmith poeta, entseiulari eta **antzerkigileak** idatzia. Xabier Olarra

Antton Luku irakasle eta **antzerkigileak** hitzaldia emango du aurrenik, eta gero Globokop, bi sosetan saltzeko tobera izeneko lana taularatuko du taldeak. Berria - Kultura

Leo Bassi **antzerkigilearen** aurkako lehergailu bat indargabetu du Poliziak Madrilen. Berria - Kultura

Izu musika taldeak kontzertua eskaini zuen eta beraiekin batera Ana Mendiola txalapartaria eta Rita Aldai **antzerkigilea** izan ziren. Berria - Harian

Gabriele D'Annunzio poeta, nobelagile eta **antzerkigilearen** drama (1863-1938, Pescaran jaioa). Fernando Rey

Brasilgo **antzerkigile** Pedro Bloch hil da. Berria - Kultura

Idazle, zinemagile eta **antzerkigile** handia izateaz gain, artean estilo propioa sortu zuen jean cocteauk. Berria - Kultura

Euskarazko **antzerkigile** onenaren saria jasotzeko hautagaiak izango dira apirilaren 26ko saioan. Berria - Kultura

Gogol eleberrigile eta **antzerkigile** paregabea izan zen, eta berebiziko eragina izan zuen Errusiako literaturan. Jose Morales

Pirandello **antzerkigile** ospetsu egingo duten obra nagusiak 1915etik aurrera hasi ziren antzezten Italiako antzezle ezagunenak. Josu Zabaleta

Maizenik **antzerkigile** sonatu gisa aurkeztu izan bada ere, azken urteetako kritikak istorio eta narrazio laburren idazle gisa garrantzi eta sormen handiagokotzat jo izan du, izan ere perfekzio harrigarrira iritsi zen genero horretan. Berria - Kultura

1968an Sobietar Batasunak Txekoslovakia hartu zuenerako Literatura estudiatu zuen eta sonadun editore eta **antzerkigile** bilakatu. Berria - Kultura

Beobidek azaldu duenez, **antzerkigile** gipuzkoarrak euskararen mundura ekarri ditu zazpi bekatu nagusiak amorrua, lizunkeria, zuhurkeria, bekaizkeria, nagikeria, hantustea eta tripazainkeria, "ikusleari egunerokoan euskararen inguruan sortzen diren hainbat egoera bitxi eta batzuetan larri aurkezteko". Berria - Kultura

Maria Dolores Agirre **antzerkigile** errezildarrak Frankismo garaian izandako bizipenak eta gerora izan duen garrantzia biltzen du Egan-ek. Berria - Kultura

Austrian programa aberatsa antolatu du Peter Sellars **antzerkigile** estatubatuarrak, hiru ataletan, eta 2006. urte osoa iraungo du. Berria - Kultura

Euskaraz ez jakin arren, Bertolt Brecht, bi mundu gerren arteko **antzerkigile** alemaniarraren Kaukasoar klerazko biribila, euskaraz emateko proiektua abian jarria du *Chimeres* antzerki taldearekin. Berria - Kultura

Bertolt Brecht (Bavaria, 1898-1956) idazle eta **antzerkigile** alemanaren argitaragabeko zenbait testu aurkitu ditu Suitzan Werner Wüthrich idazleak. Berria - Kultura

Tadeus Kantor **antzerkigile** poloniarraren liburu bat irakurri berri dut, eta esaten du gustatzen zitzaiola oholtza inguruan mugitzea, antzezlanaren tempo-a neurtzea eta zuzentzea. Berria - Kultura

Fathia el Assal **antzerkigile** egipziarrak idatzi du Nazioarteko Antzerki Eguneko mezua, mundu osoko antzokietan irakurriko dena. Berria - Kultura

Euskal **antzerkigile** onenaren sariko hautagaitza, Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Platonek bere **antzerkigile** gaitasuna erakutsi zuen maitasunaren inguruko sinposio honetan, pertsonaiak beren hitzaldien bidez aurkeztu eta deskribatu baitzituen. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antzerkigile onenaren** (3)

---

antzerkigintza *iz* antzerkiak moldatzeko edo jokatzeko jarduna.

Beste jardun batzuk ere badira, jakina, ipuin kontalaritza, txiste kontalaritza, maitasun gutunen lehiaketak, behar beste landu ez diren **antzerkigintza** eta txotxongiloak. Koldo Zuazo

Antzerkigintzan ibili zara bai sortzaile gisa eta baita tailerrak emanez. Ana Urkiza

Lan honekin haurren **antzerkigintzan** eta txotxongiloen munduan murgildu da lehen aldiz. Berria - Kultura

Aristides Vargasek dioenez, Quitoko **antzerkigintza** une interesgarrian dago. Berria - Kultura

Haur literaturan obra gogoangarriak idatzi ditu, diskografian ere hainbat kanta ezagun, **antzerkigintzan** inkurtsio berritzaileak, irratirako gidoiak eta zer ez; baina, ezagunago Obabakoak-ez geroztik egin bazen ere, ez zuen etsi gerora. Berria - Kultura

Artikulugintzan hasi, **antzerkigintzan** jarraitu eta zinemagintzan asentatutako ibilbide osoa hartzen duen ardatza. Berria - Kultura

Testuok **antzerkigintzaren** eragileen aurrean erakustea garrantzitsua dela dio elkarte horrek, "modu horretan errazago iristen baitira taulara. Berria - Kultura

Antzerkigintzari batere ohartuak direnek beti gogoan duzkete antzerki horietarik asko: Menditarrak, Zurgin zaharra, Hazparneko anderea, Behorraren ostikoa, Eneko BizkaietaMaria Lorka, Gure behia hila da. Herria

Irudipena duzu, begi onez begiratuz gero behintzat, ez duela egokitu nahi izan garai berri zabar hauetara, non areto guztiak **antzerkigintzari** bizkarra eman eta telebistaren morroi bihurtu diren. Bernardo Atxaga

Antzerkigintza modernoak, zorionez, forma tradizionalak gainditu ditu hainbat berrikuntza-olderi esker. Berria - Kultura

Ugartek *La Barraca* taldean zuzendarikide moduan egindako lana eta **antzerkigintza** profesionalean egindako sartu-irten arrakastatsuak nabarmendu dituzte liburuan. Berria - Kultura

Euskal **antzerkigintzaren** ezaugarriak aztertzeko mintegia antolatu dute. Berria - Kultura

Lipusek aipatu duenez, euskal **antzerkigintzaren** tradizioan erreferentzia argiak egonik ere, zaila da euskal antzerki garaikide bat dagoela esatea. Berria - Kultura

Euskal **antzerkigintzaren** uzta ona. Berria - Kultura

Max sarietako euskarazko **antzerkigintzaren** arloan, umeentzako hiru obra hautagai Haur eta gazteentzako **antzerkigintzak** ezaugarri propioak garatu dituen arlo bat izanik, emaitza oparo eta emankorrak eman ditu azken urteotan. Berria - Kultura

Esanguratsua izan da aurten izendatutako gehienak haur **antzerkigintzari** loturiko testuak izan direla, Anartz Zuazua eta Klaus Grotenen Xomorroak eta Emilio Fernandez Pinedoren Txaribari tarteko. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **euskal antzerkigintzan** (4)
> **euskal antzerkigintzaren** (6)

---

antzerkigune *iz* antzerkiak jokatzeko gunea.

Hiru eguneko egitarau batean, 11 ikusgarri, horietatik 6 ofiziozko jokolariek emanak eta gainerateko 5ak afiziozko aktoreek aurkeztuak; hiru agerraldi euskarazko piezekin osatuak; hiru aterpe eta bi plaza **antzerkigune** bilakatuak. Berria - Kultura

---

antzerkilan ik **antzerki 2**.

---

antzerkilari **1** *iz* antzezlaria, antzerki jokalaria.

Antzerkilaria monologo luze batean ari zen bere bizitza kontatzen, bere amodioak eta oroitzapenak aletzen, taula erdian bakarrik. Iñaki Zabaleta

Bederatzi **antzerkilari**, hamabi neska dantzari eta Beñat Achiary kantari: hastetik buru bada segur mugimendu taula gainean! Herria

Musika eta dantza nahasiz, orotara 100 dantzari, soinulari eta **antzerkilari** biltzen ditu lan horrek. Berria - Kultura

Karrikako xokoetan erakusmahaiak, artisau azoka, liburu saltzaileak, abesbatzak, trikitilariak, txalapartariak, **antzerkilariak**, haurren jokoak eta abar antolatuak ziren. Berria - Euskal Herria

Infernuko piperminak zirikaturik ari den apaiza atleta bat da: **antzerkilari** eta istorio kontalari izateaz gain, abeslaria eta dantzaria ere bada. Harkaitz Cano

Irri hedatzaile, denbora berean **antzerkilari**, hau dugu Patzo HirigarayIrulegi irratiko langile ezaguna. Herria

Hor mintzatuko dira Pier/Pol Berzaitz, "Ramuntxo" pastoralaren idazle eta errejenta, Txomin Hegi **antzerkilaria** eta Beñat Oiharzabal euskaltzaina. Herria

Ostiral arats honetan, ekainaren 13an, 21etan, AIEC-ko kultur gelan, Jean-François Balerdi **antzerkilariak** bere ikusgarria aurkezten dauku: "ET PLUS SI AFFINITES".

Herria

Psikomotrizitatea lantzen duen pertsona dago, **antzerkilariarekin** batera. Berria - Euskal Herria

Hortik landa, egunaren momento berezia ezagutuko dugu Zan Pantzarraren epaiketarekin, eskoletako haurrak eta **antzerkilariek** emanik. Herria

Geroztik, bertsularitza sustatu nahian, kantari eta **antzerkilarien** artetik, bertsulari gazte ala ezagun batzu ere sartu dira gau-beiletako egitarauetan, hala nola Sarasua, Irazu, Xalbador, Ezponda, Alkhat, Maialen Lujanbio eta beste. Herria

Politikariek, instituzioek, geuk **antzerkilariok** ez dugu lortu, besterik ez bada ere, arte eszenikoak zerbait direla eta norberaren hazkunde pertsonalerako balio dutela adieraztea. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Larunbatean, aratseko 9 etan, irri-emanaldibat, Baigorri Biletxean, Pantzo Hirigarai eta Beñat Bidegain **antzerkilari** umoretsuekin. Herria

Irri-emanaldibat, Kalakirri, apirilaren 19 an, larunbat aratseko 9 etan, Biletxean, Pantzo Hirigarai baigorriarra eta Beñat Bidegain lekondar **antzerkilari** umoretsuekin. Herria

Lukax Dorronsoro **antzerkilari** ezaguna atxilotu egin zuten, Gaztelu auzoan apaiz zen garaian. Berria - Kultura

Berriz ere hemen ditugu fleitean herriko **antzerkilari** trebeak. Herria

Mauleko Argia ikastetxeko eta Sohütako Eperra ikastolako **antzerkilari** gazteak. Berria - Kultura

Copi **antzerkilari** argentinarraren lau obra taularatuko ditu, frantsesez. Berria - Kultura

Enrique Alonso Cachirulo zuzendari, aktore, produktore eta **antzerkilari** mexikarra hil da 80 urterekin. Berria - Kultura

Aspaldiko partez, herritar **antzerkilariak**. Herria

Goi-maileko **antzerkilari** batzu agertuko dira taulen gainean, Joseba Tapia musikariaren laguntzarekin. Herria

Hor gintuen Baigorriar "Porru Salda"-ko **antzerkilariak**. Herria

3 (hitz elkartuetan)

Zortzi **antzerkilari** talde partzuer akulatuko da sail guzia. Herria

"LES BARBEAUX TRUITES" Languedoc-eko sonülari **antzerkilari** taldea. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antzerkilari gazteak** (5); **antzerkilari trebeak** (3)
> **antzerkilariek emanik** (3)

---

antzerkilaritza *iz* antzerkilariaren jarduera.

Arte hortan dotzena bat antzerki eskainia izanen da eta **antzerkilaritzan** trebatu nahi dutenentzat taller batzu moldatuak izanen dira. Herria

Baina orduz geroztik, beste zenbat elkarte berri ez da agertu, eta bakoitza bere sail bereziari lotu?... dela euskalgintzari, dela euskal ikaskuntzari edo erakaskuntzari, dela euskal komunikabideei, dela euskal literaturari, dela euskal **antzerkilaritzari** edo bertsularitzari. Herria

---

antzerkiratu, antzerkira(tu), antzerkiratzen du *ad* antzerkira eraman.

Horri esker da, gainera, **antzerkiratzeko** horren egokia. Berria - Kultura

---

antzerkitasun *iz adkor* antzerki izateko nolakotasuna.

Baina forman bezanbat, solasaren funtsa antzerkiaren **"antzerkitasunean"** dela erakutsi dauku, gai hunen inguruan adibide bat baino gehiago ekarriz. Herria

---

antzerkitto *iz adkor* antzerkitxoa.

Aratsaldean, hiru **antzerkitto**, hiruak hazpandarrek eskainiak, "Xirula majikoa", "Mattinen erbia" eta "Eloixa eta Martintxo". Herria

---

antzerkitxo *iz adkor* teatro lan laburra.

Hutsik dago, eta dendaria marrubiak paratzen ari da zumezko saski dotoreetan, miniaturetako **antzerkitxo** baterako atrezzoa balitz bezala. Alberto Barandiaren

Sartu barik egin zuen **antzerkitxoa** atetik, norbaiten aurrean interpretazio saioren bat burutzen egongo balitz bezala, harik eta inguruan inor ez zeukala konturatu zen are. Josu Landa

Eta gero **antzerkitxoa** eta gero harrera afari baten modukoa. Edorta Jimenez

Ezin da egia esan, ezin daiteke bera izan hilketa odoltsu horiek agintzen dituena, nik beste pertsona bat gogoratzen dut, txotxongilo **antzerkitxoak** antolatzen zituen mutil argala, literaturazale amorratua. Mikel Hernandez Abaitua

Herri-giroko tradiziotik kanpora, nor izendun bakar batengan aurkitu dut hori berori; Nemesio Etxanizen "Zotzean bizia" izeneko **antzerkitxoan**. Iñaki Segurola

---

antzerkizale *izond/iz* antzerkien zalea dena.

Slawinskik handia, **antzerkizale** aparta ez zuen distira handiko unerik aurkitu, baina txukun bete zuen bere lana. Berria - Kultura

Nork ez du ezagutu Telesforo de Monzon,bai politikari bezala, bai eta **antzerkizale** kondu? Herria

Antzerkizalea banintzen, han bertan oso liburutegi espezializatu ona nuela jakinarazi zidan. Ramon Saizarbitoria

Halere, Shakespeareren lanez gain, beste aukerarik ere izango dute **antzerkizaleek** Erriberrin. Berria - Kultura

Hamazazpi urtetan ere aski **antzerkizalea** zen. Aingeru Epaltza

Antzerkizale porrokatua zen eta zirko ikuskizunak ere gustuko zituen, hauen artean gladiadoreen borrokaldiak, kristauentzat debekatuak izan arren. Imanol Unzurrunzaga

---

antzerti *(ETCn **535** agerraldi cf **teatro** ETCn **5.702** agerraldi) iz* jendaurrean gertaera sail bat irudikatzean datzan edertia. ik **teatro**; **antzerki**.

Irakasle ikasi zuen Eskoriatzako Irakasle Eskolan eta antzerki ikasketak egin zituen **Antzerti** eskolan. Ana Urkiza

Batak zigarroa piztuko du, bestea jokatzeko izendatu dioten rolagatik kexuka arituko da, hurrenak **antzerti** aldizkari batetik albisteren bat irakurriko die ahots goran bere lagunei. Josu Zabaleta

Badakik puristek beti esaten dutela elkarrizketa ugarirekin ez dagoela prosa narratibo onik, dialogoak **antzertirako** utzi behar direla. Mikel Hernandez Abaitua

antzeslan ik **antzezlan**.

antzeslari ik **antzezlari**.

antzesle ik **antzezle**.

antzesleku ik **antzezleku**.

antzespen ik **antzezpen**.

antzestoki ik **antzeztoki**.

antzestral *(corpusean ez dago; ETCn **55** agerraldi) izond* antzinakoa; oso antzinakoa. ik **antzina-antzinako**.

Gure ohitura **antzestralak**, hunkigarriak eta maiteak, karrika-dantza ero baten segida begitantzen zaizkit. ETC-prentsa

Barka diezadala beraz ertzain jaunak nire etxeko atea bota eta ni atxilotzera trumilka sartu ziren hartan izan nuen estualdia eta hustualdia, ez nintzen ni, nire hesteak ziren, mandatu **antzestral** bati jarraiki ari zitzaizkionak. ETC-prentsa

Izan ere, laborariak badaki lur emankorrari eusten dionak bere etorkizuna ziurtatzen duela, eta baita gainontzeko herritarren segurtasuna ere.>>Nekazaritza Ekologikoa lurraren, uraren eta suaren kudeaketa **antzestral** horren oinordeko berritua da. ETC-prentsa

Zurea ez den lurralde, kultura, kosmobisio batean sartzen zara zure prepotentzia motxilan duzula: garatutzat daukazu zure kultura, atzeratutzat indigena-rena, nahiz diruak emanak diren, eta ez kulturak, salbaiak beren jantzi **antzestral**-ekin erretratatzeko kamera eta aukerak. ETC-prentsa

X adabegiak espezie **antzestral** bakarra adierazten du, antzinako narrasti bat, bi espezie ondorengotan banatu zena. ETC-zientzia, zuzenbidea

antzestu ik **antzeztu**.

antzetsu *izond* zerbaitetarako antze handia duena, trebea. ik **artetsu**.

Ezpatari **antzetsua** eta ezin trebeagoa zen, bertzalde, egunoroz bere ezpata erabiltzerat entseiatzen zena. Joan Mari Irigoien

-Hortxe dago gakoa, Pavel Ivanovitx! -esan zuen Manilovek leunki, eta begitarte gozoa jarri zuen, gozoegia aukeran, hala nola izaten baita gozoegia mediku **antzetsuak**, gaixoari alaigarri izango zaiolakoan, neurririk gabe eztitzen duen edabea-. Jose Morales

Jaun Marcelen eta aita Bartolomeren eskola emaiteko moduak arras diferentak ziren: biak ziren katolikoak, eta biak hitz egiten trebeak, **antzetsuak** eta jasoak, baina jaun Marcel, buztina bezala, moldagarria zen, eta aita Bartolome, harria bezala, zurruna eta guztiz moldagaitza. Joan Mari Irigoien

Merkatariak, oso **antzetsua** bera, berehalaxe altxatu zuen salmahaiko ohola, eta, igarobidea horrela irekirik, saltoki barruan kokatu zen, salgaiak atzean eta eroslea aurrean. Jose Morales

Eta harro ere nengoen, egia erran, alde batetik, zeren eta Mignonen laudorioek klarki adierazten baitzidaten ezen, materia hartan eta trabailu haietan hasi berria nintzen arren, nornahi-den baino gaiago eta **antzetsuago** izan nintekeela. Joan Mari Irigoien

antzetsuki *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) adlag* modu antzetsuan.

Haren postuak ezkutuko eragina zuten zenbait hari jartzen zituen buruaren eskupean, harengan bat egiten zutenak eta, haren agindupekoen bitartez **antzetsuki** erabiltzen zirenean, itsasoko jende xehearen arteko edonori deserosotasun misteriotsua, edo okerragoa zen zerbait, sorrarazteko gai zirenak. ETC-literatura, saiakera

antzez ik **antzeztu 2**.

antzezaldi *iz* zerbait antzezten den aldietako bakoitza. ik **antzeztaldi**.

Antzezaldia izango dugu bihar.Ezer itzuriz gero harenik **antzezaldiak** diraueno, eta ez ohartuan pasatu, ni naizateke ihes horren zordun. Juan Garzia

Poll, Doll eta Moll, Flumek eramanak arduraz airean, barre handiz aldarrikatu zuten emakume peto-peto bat zela hura, eta lokarriak askatu nahi izan zizkioten **antzezaldiaren** ondoren. Juan Garzia

Bazatozak **antzezaldira**. Juan Garzia

antzezale *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian 'artezale' adieran agertzen da soilik) iz* antzerki zalea. ik **teatrero**.

Antzezale porrokatuek diotenez, askoz zailagoa omen da kuroko baten lana, antzezle nagusiarena baino. ETC-literatura, saiakera

Heavy metalen artean ikaragarrienak, **antzezaleenak** eta probokatzaileenak. ETC-prentsa

Eszenifikatze **antzezale** poetiko honen bidez, munduan kokatu da poeta. ETC-prentsa

antzezarazi, antzezaraz(i), antzezarazten du *ad* antzeztera behartu.

Ez: konpainia-buruak semearekin eszena bat **antzezaraziko** diola espero duelako baizik, eta hartan bere bizitzaren parte handi bat jartzea espero duelako; halako eszenarik ez da existitzen, ordea, ez da sekula gertatu ahal izan, ez ahal izango ere. Josu Zabaleta

Entzun, mesedez: **antzezaraz** ezazu oraintxe bertan, drama hau, zeren ikusiko duzu nola, une batean, honako maitagarritxo hau (Amaren ondoan dagoen Neskatoari eskutik helduko dio, eta Konpainia-buruaren aurrera eramango du) ikusten zein pollita den? Josu Zabaleta

1910etik aurrera, Nino Martoglio eta Angelo Musco antzezleek eskaturik, bere antzezlanak **antzezarazten** hasiko da Erroman, Siziliako dialektoan lehendabizi. Josu Zabaleta

---

antzezgela *iz* teatro lan bat antzezteko gela.

Biluztasuna, paradisutik eta haurtzarotik egotzitakoentzat, bi eratakoa izan ohi da: bata da biluztasun biluzia edo gorria, eta hor ez dira sartzen ustekabekoak ez diren biluztasun ohiturazko edo arautuak -mediku-gela, aldagela, **antzezgela**, ezkongela, putagela eta abarretakoak-, eta ezta toki jakinetan "nudismoa eta naturismoa naturaltasun osoz" praktikatzen duten popabisteroen biluztasun zuri edo jantzia ere: hori jantzita egoteko beste era hagitz errespetagarri bat baizik ez da, nudismoaren teorikoek berek aitortzen eta defendatzen dutenez; protestako biluztasuna edo zerbait [...]. Iñaki Segurola

---

antzezgune *iz* teatro lan bat antzezteko gunea.

Gogoaren sasi-ordain edo suzedaneoa den helburua hilburu bat da izatez, eta bizia orduan "nere bizia" bihurtua dago, bizitza, bizi-arte edo hil-artea, hartara arteko arte edo bitarte gisa sentitzen dena, denbora jakinez oratutako leku edo igarobide jakin bat, eszenatoki bat, **antzezgune** bat, karreraleku bat. Iñaki Segurola

---

antzezkeria *iz* antzeztaldi gaitzesgarria.

Telegrama jaulierraren aurpegiraino jaso eta hautsi egin zuen **antzezkeria** handiz. Koldo Izagirre

Betarik ere ez zuen noski **antzezkerietan** alferrik galtzeko. Juan Garzia

---

antzezkizun *iz* antzezlana.

Amilibiari txalo haiek gustatu eta, esku-zarten zaparrada hura gehiagotan ere errepikatuko zela pentsatuz, **antzezkizunak** edozein aitzakiarekin gerarazten hasi zen, ikusleak zeharo haserretu zitzaizkion arte. Eszenaren atzean portikoak egin behar dira, hain zuzen ere, **antzezkizunaren** erdian euria hasi eta eten beharra gertatuz gero, jendeak izan dezan nora bildu, eta koroek ere leku horretan izan dezaten prestatzeko adina leku. Martin Anso

Film baten proiekzioa edo **antzezkizunen** bat ustekabean eteten denean, palkoan Amilibia agertu den seinale. Martin Anso

Paladinarena egiten duen antzezlea dudatan geratu da, baina eskaera aho batekoa dela ikusirik, Aita Froilan "hiltzea" erabaki du, horrek **antzezkizunaren** jarraipen logikoa zeharo zapuzten badu ere. Martin Anso

---

antzezlagun *iz* antzezlea.

Jatorriz, antzezle bat zen soilik, hipokrita delakoa, koturnoaren gainean garai, beltzez edo purpuraz jantzirik eta aurpegia mozorroak handiturik, koruko hamabi kideen **antzezlagun** bakar. Juan Garzia

---

antzezlan *(orobat **antzeslan** g.er.) iz* teatro lana.

1988an, Frielen **antzezlan** bat estreinatu zuen Donostiako Tanttaka taldeak, *Agur Eire, agur*. Iñigo Aranbarri

Baina -enetzat, eta beste batzuentzat, zeinen iritzia ospez gailentzen baitzaio eneari halako gaietan- **antzezlan** bikaina zuan, atalez atal ongi antolatua, begiramen bezain talentu handiz idatzia. Juan Garzia

Antzezlan anker hartako protagonista itsu-itsuan bidali ote zuten Reichera? Alberto Ladron Arana

Bere **antzezlan** irri-eragingarri bateko pertsonaia baten hitzak gogorarazi niezazkiokeen Lauaxetari une hartan, maltzur eta bidegabeki -testuingurutik kanpo, modu teknikoan esateko-, eta galdetu ea zer neurritaraino zegoen egilea pertsonaia harekin ados. Juan Luis Zabala

Urte berekoa da, kasurako, Becketten *Godoten esperoan* **antzezlana**. Juan Garzia

Ahulkiak Harkaitz CANOren **antzezlana**, edo irakurketa antzeztua, aulkiei buruzko istorioekin. Iñaki Arranz

-Begira, badut lagun bat, aktorea, egunotan **antzezlana** estreinatzekotan dabilena, "Purpurazko musuak". Jasone Osoro

Etsipenari aurre egiteko edo, udan zehar buruan ibili izan duen plana orduantxe gauzatzea otu zaio Ernest Hemingwayri; hiru ekitaldiko **antzezlana** idaztea. Edorta Jimenez

Uste dut ikusi zenuela **antzezlana**, Covent Gardenen. Monika Etxebarria

Ondoan eserita dauzkan udatiar musugorriak, beren haragi nasaietan eroso, gozatzen ari dira **antzezlanaz**. Oskar Arana

Hala mintzo zitzaion Sonia gaixoa osaba Vaniari izen bereko **antzezlanaren** amaieran. Iban Zaldua

Eleberri hartan izen eta guzti aipaturik ageri den Gustavo Duran bera dateke, ziurrenik, *The Fifth Column* **antzezlaneko** pertsonaia nagusiaren iturria. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **antzezlan bat** (19); **antzezlan batean** (3); **antzezlan batekin** (3); **antzezlan baten** (4); **antzezlan berria** (3); **antzezlan hau** (4); **antzezlan honetan** (4); **antzezlan horrek** (5); **antzezlan labur** (3); **antzezlan onenaren** (3); **da antzezlan honen** (3); **du antzezlan** (3); **duen antzezlan** (3); **hiru antzezlan** (4)
>
> **antzezlana aurkeztuko du** (5); **antzezlana egin** (3); **antzezlana eramango du** (3); **antzezlana ere** (4); **antzezlana eskainiko du** (4); **antzezlana estreinatuko** (3); **antzezlana ez** (3); **antzezlana izango da** (3); **antzezlana taularatuko du** (5); **antzezlana taularatuko dute** (3); **da antzezlana** (4); **du antzezlana** (6); **duen antzezlana** (3); **dute antzezlana** (4)
>
> **antzezlanak ere** (4); **antzezlanak izango** (3); **du antzezlanak** (5)
>
> **antzezlaneko pertsonaia** (3); **antzezlaneko protagonista** (3)

---

antzezlari *(ETCn **119** agerraldi; orobat **antzeslari** g.er.) iz* antzezlea. ik **teatrolari**.

Boz ederra zuela eta aitzindari zonbaitek pentsatu zuten **antzezlari** bezala bazukeela biziaren irabaztekoa, bainan mementoan liburu irakurtzen eta erdara ikasten aritzea aski zitzakon. Michel Oronoz

Martxoaren 25an, ostirala, Xuriatea ostatuan arratseko 8: 30tan, ezagutzen ez diren bi artisten arteko topaketa: Joel Merah (Garazi Filantropik Orkestra taldeko gitarista) eta Jules (**antzezlaria**, "Port du casque obligatoire" ikusgarrian aurkeztu dena). Herria

Plataforma grekoek egiten dutena baino handiagoa izango da, gure artean **antzezlari** guztiek eszenan lan egiten baitute, orkestra senadoreen eserlekuak jartzeko utziz. Santiago Iruretagoiena

Grekoek *logeion* (solas-plaza) deitzen diote, aktore tragikoek eta komikoek eszenan egiten dituztelako beren hizketaldiak, gainerako **antzezlariek** beren lana orkestran egiten duten bitartean. Santiago Iruretagoiena

-Japoniako Nô **antzezlariek** bost minutu ematen dute antzeztokiaren erdiraino heltzeko. Javi Cillero

Irakurtzen hasi eta hain ongi egin zuen - **antzezlari** trebea bailitzan-, non ezin izan nituen hitzak banan-banan jaso; esan nahi dut testuari abandonatu nintzaiola. Ramon Saizarbitoria

Fifine genuen komedia egiten zen garaian gure herrian, **antzezlari** hoberenetarik, irria erakartzen zuena agertu bezain laster taulen gainean. Herria

antzezle *(ETCn **4.873** agerraldi; orobat **antzesle** g.er.)* **1** *iz* teatroan aritzen den pertsona.

Ama zen, izan, **antzezle**, eta arrakasta handia izaten zuen bere lanetan; aitak ez zuen antzerkirako batere balio, eta edaten hasi zen. Koro Navarro

Ez zuen inongo doinurik, eta ahotsa **antzezle** batek bezala modulatzen zuen: mahai batetik bestera ozen hitz egin gabe, neure ondoan balego bezala eta leun eta gozo entzun ahal izateko moduan. Ramon Saizarbitoria

Jeanek **antzezle** baten moduan egin zuen txalo. Koro Navarro

Hogeita hamar urte atzerago, jaurtikin horrek berak Lincoln hil zuen, **antzezle** baten egintza kriminal edo eta magiko bat tarteko; izan ere, Shakespeare-ren hitzek Marko Bruto, Zesarren hiltzailea, bihurtu baitzuten **antzezle** hura. Juan Garzia

Azkeneko honetan ere Kimikako eskolako iskanbila bera errepikatu nahi izan zuten ikasleek; irakasleak, ordea -aguretxo lehor eta erretxin bat-, aurre egin zien, esanez berari inork ez ziola barrerik egingo ezta txalorik ere, **antzezle** bat balitz bezala. Josu Zabaleta

Frantses zinema zuzendaria eta **antzezlea**. Bernardo Atxaga

Psikologoa eta puta: biak dira bota-behar baten hartzaile ordainduak; biak dira interes eta pasio berberaren **antzezleak**. Iñaki Segurola

Pirandelloren lehenengo moldapenean, esate baterako, **antzezleak** eta pertsonaiak ate beretik sartzen ziren agertokira. Josu Zabaleta

Pitoiefen eszenografian, **antzezleak** eta pertsonaiak ongi bereizteko, pertsonaiak igogailu baten bidez agerrarazten ziren agertokian, eta igogailu baten bidez desagerrarazten ziren, orobat, agertokitik, **antzezleen** ezintasunaz etsirik. Josu Zabaleta

Philip Seymour Hoffman **antzezlearen** lana ikusita, Oscarra ia ziurtatuta du. Berria - Kultura

Eszenografoaren lanbidea aski berandu azaldu zen antzerkian; gaur egun sorkuntza-lan, artelan bezala ikusten da, eta egilearen edo **antzezleen** lanarekin parekatzen da batzuetan. Josu Zabaleta

Antzezleek duintasunez garatu zituzten beren rolak. Berria - Kultura

Zuetako zein **antzezlek** jokatu behar du Madama Pazena? Josu Zabaleta

1910etik aurrera, Nino Martoglio eta Angelo Musco **antzezleek** eskaturik, bere antzezlanak antzezarazten hasiko da Erroman, Siziliako dialektoan lehendabizi. Josu Zabaleta

Ehunka **antzezleek** lagun egin zioten protagonistari; zenbaiten papera konplexua izan zen; beste zenbaitena, berriz, une-unekoa. deia horretatik abiatuta, Pirandellok ikusleen artetik sarrarazi zituen pertsonaiak, **antzezleen** eta haien arteko desberdintasuna nabarmenarazteko. Juan Garzia

Beste aulki batzuk, han-hemenka: eskuinean eta ezkerrean, **antzezleentzat**; eta piano bat atzealdean, alde batera, ia ezkutuan. Josu Zabaleta

Herriz herriko antzerki emanaldi eskergak, zeinetan milaka **antzezleek** parte hartzen baitute, gertatu ziren hiri eta mendi beretan berrituz jazoera historikoak. Juan Garzia

Irrati eta telebistako hainbat emakume-ahots zituen gustuko Egutxik, eta telebistako **antzezleak** agertzen zirenean, begiak itxi eta haien ahotsa entzuten zuen. Ibon Uribarri

2 (izenondo gisa)

Antza denez, garai bateko emakume **antzezle** bat, Edgarren laguna ere izan zena, Barne Ministerioaren Ohitura Onetarako Idazkaria zen. Joxan Elosegi

3 (izenlagunekin)

Vittorio de Sica italiar **antzezlearen** ustetan, lo egiteko begietatik hartzen den pilula bakarra da etxe guztietan ikus daitekeen tresna itsusi hori. Pello Salaburu

Peter Sellers ingeles **antzezlearen** jokoak areagotzen du egoeraren barregarritasuna, berak jokatzen baititu paper guztiak: Dukesa handia, lehen ministroa, Sarjentua, eta abar. Juan Garzia

4 (izenondoekin)

Antzezle berriak antzezlan zaharrean, alegia. Berria - Harian

Las memorias de Sarah Bernhardt-en XIX. mende amaierako eta XX.aren hasierako **antzezle** mitikoaren bizitza harrigarria azaltzen digu Sarah zaharrak. Berria - Kultura

Antzezle aspergarriz betetako filma txar batean bezala, Wildek, diru-premiak itota, lau hilabetetan idatzi zuen komedia hau, orduko **antzezle** ospetsuenetako batentzat, George Alexander-entzat. Hasier Etxeberria

Vienan estrenatu berri den obra bateko **antzezle** nagusia da eta kritikak ezin hobeak izan dira. Ramon Etxezarreta

Nire isilmandatariak, **antzezle** bikaina baita, harridurazko, etsipenezko eta barkamenezko gertaldi ttipi bat jokatu zuen. Jon Muñoz

Souteneur bat ematen zuen, edo, hobeki esan, putazain-papera egiten zuen **antzezle** txar bat. Juan Garzia

Ez dugu dirurik batere, jaun zerbitzala, kobrezko xaflok eta kamelot tindatuzko piezok baino, eta **antzezle** ibildaun behartsuak gara, gaixo gu, berori ere den bezala. Juan Garzia

Baina Pirandello antzerkigile ospetsu egingo duten obra nagusiak 1915etik aurrera hasi ziren antzezten Italiako **antzezle** ezagunenak. Josu Zabaleta

Ikusteko asmoa duen filmaren izenburua esaten dit, eta segidan esaten diot hartan parte hartzen duten **antzezle** nagusien izenen zerrenda, eta hartaz argitaratu diren kritikak. Josu Zabaleta

Argazkietako beste batzuk lanekoak ziren eta Louise **antzezle** ospetsu askoren alboan ageri zen. Hasier Etxeberria

Antzezle amateurrak zarete? Josu Zabaleta

Ava Gardner **antzezle** izarrak behin baino gehiagotan hartzen omen zituen bere ohean pilotari maitaleak. Ramuntxo Etxeberri

Hasieran, dekoraturik eta albo oihalik batere ez duen agertoki batean entsegua egiten ari diren Antzerki Konpainia bateko **antzezle** gaixoen ustekabea. Josu Zabaleta

Entsegua hasi behar duten hiru **antzezleak** eta Lehen **Antzezle** Emakumezkoa salbu. Josu Zabaleta

Antzezle amateurrak zarete? Josu Zabaleta

Alde batetik, Annie Parmentier **antzezle** ohia, bere alaba Isabellen aitatasuna Marcel Martini egozten ziona, eta, bestetik, Hélène Daudet, haren alargun gaztea. Ramon Saizarbitoria

Berezko **antzezle** eta mimogilea zen, are artean ia hitzik esaten ez zekienean ere, Lorraine Colek idatzi duenez: [...]. Xabier Olarra

Eroaren gisan maitemindu zen Madam Tschissik izeneko **antzezle** histrioniko batez. Koro Navarro

Antzezle ikaragarri ona, Nathan. Oskar Arana

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kaleratu berriari ongietorria egin ziotenean, hantxe agertu ziren EAJko eta Jauriaeneko daktilografo horiek euren **antzezle** dohainak jendaurrean erakustera. Jokin Urain

-Kar, kar! -garrasi egin du **antzezle** ahotsarekin-. Monika Etxebarria

Gauerdia pasatxo zenean, jendez bete-beteta zegoen geltoki batera iritsi ziren; **antzezle** konpainia bat zen bidez aldatzen, Valentziako trena utzi, handik baitzetozen, eta Andaluziakoa hartzeko. Josu Zabaleta

Nire **antzezle** karrerak ordudanik ezagutu zuen arrakasta itzela. Joxan Elosegi

Ez al nuke aski hauxe, eta luma-oihan bat soinean -gainerakoan zoriak itzuli gaizto emanez gero- eta Probentzako arrosa bi zapata kalatuetan, bazkidetza bat lortzeko **antzezle** -talde batean? 1921ean idatzi zuen, esan bezala, Pirandellok, eta urte horretako maiatzaren 10ean estreinatu zuen, Erromako Teatro della Valle antzokian Niccomedi **antzezle** taldeak. Juan Garzia

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zinema-**antzezle** baten gisa, adats gorri aizuna ezker-eskuin kulunkatzen zitzaion, bere jabearen mugimenduekin batean. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzezle bat (15); **antzezle batek** (6); **antzezle baten** (6); **antzezle emakumezkoa ez** (3); **antzezle emakumezkoa seinalatuko** (3); **antzezle emakumezkoak** (4); **antzezle gazte emakumezkoa** (6); **antzezle gazte gizonezkoa** (12); **antzezle guztiak** (3); **beste antzezle batzuk** (3); **burua lehen antzezle** (4); **lehen antzezle emakumezkoa** (33); **lehen antzezle emakumezkoari** (7); **lehen antzezle gizonezkoa** (31); **lehen antzezle gizonezkoari** (6)

antzezlea sartzen (3); **errege antzezlea** (5); **erregina antzezlea** (6); **hirugarren antzezlea** (3); **lehen antzezlea** (10)

antzezleak barrez (3); **antzezleak ez** (4); **antzezleak harriturik** (3); **burua eta antzezleak** (4); **dira antzezleak** (3)

antzezleek barre egingo (4)

antzezleku *(orobat **antzesleku** g.er.) iz* treatro lan bat antzezten den tokia.

Horien soinu egiteak zein ere aktoreen bertset eta kantu emateak, dena den, oso ondo entzungo dira pastoral honen **antzezleku** izango den Agerriako fraidetxearen atzealdeko esparruan. Berria - Kultura

Baina bat-batean gelditu zen, antzezlaria **antzezlekuan** bezala aurreratu zen, makurtu zen, eta irribarre sotilak egiten zituen eta musuak botatzen antzezlarien gisa, bere esku ikaratiaz, zuhaitz inausizko bi ilaretarantz. Josu Zabaleta

Haien inguruan, drama baten **antzezlekua** bailitzan, zuhaitz berdeak, berde argi dirdaitsu batez, enborrak garraren distira biziak jota, hostotza barnera isurtzen zitzaion argiak alderik alde igarota, hanpatuta, bustita. Josu Zabaleta

antzezpen *(orobat **antzespen** g.er.)* **1** *iz* antzezlan baten emanaldia.

1921eko **antzezpena** bera ere ez da hartu behar *Sei Personaggi in cerca d'autore* obraren behin betiko erredakziotzat, geroztik antzezle, antzerki zuzendari eta eszenografo askok egingo zizkioten ekarpen askoren abiapuntutzat baizik. Josu Zabaleta

Ez dut afaria irentsi nahi **antzezpena** hasi baino bost minutu lehenago. - **Antzezpenak** hunkitu egin gaitu, besterik ez, Susie. Lopez de Arana

2 (izenondoekin)

Biluzturik zeudenean ere, emakumeak bazekien gau hura **antzezpen** arrunta zela, botila huts batetik ateratzen zen sentipenik gabeko oroitzapen ironiko bat. Aritz Gorrotxategi

Dembak hori esan eta eztulka hasi zen lehertu beharrean, eta inondik ere ito egingo zen, ateko txirrin hotsak eten ez balio tisiko baten azken orduen **antzezpen** birtuosoa. Anton Garikano

Munduko **antzezpenik** onena izan zitekeen, munduko aktorerik onenek antzeztua eta, hala ere, porrot handia izateko arriskua hortxe dago. Lopez de Arana

Pistola beltza gizasemearen eskuetan heriotzaren aldarrikapen bihurtzen den bezala, emakumearen eskuetan zerbait oso bestelakoa iruditzen baitzaigu, **antzezpen** sotil edo gezurrezko zerbait, jostailu bat, azken finean, are gehiago emakumea liraina edo ederra denean. Joxean Agirre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mentxuk maiz irudikatu izan zuen Luigi bera ispilu haren aurrean makillajeko eta bere buruarentzako **antzezpen** saioak egiten. Josu Landa

Antzezpen kutsuko keinu dramatikoarekin, zizpoleta bateko bala bakar bat eman zion Felixi, inguruan begirale zuen jendearen aurrean, eta "Errusiari egin diezaiokezun mesederik handiena da" esan zion. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ni ez ninduten ia aipatzen, eta hartara hobeto, ez bainekien ume haren aita zein neurritan ote nintzen: nik txuriaren gainean beltza jartzen nekien, hitzak harilkatu eta esaldiak osatzen alegia, eta kamera, mugimendu, musika eta **antzezpen** kontu haiek ostera... Xabier Mendiguren Elizegi

4 ***txotxongilo antzezpen*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Altzoko erraldoiari buruzko **txotxongilo antzezpen** baterako pertsonaiak sortzeko eskatu diote, eta collageak egiten ari da. ETC-prentsa

Txotxongilo antzezpenak egiteaz gain, Txotxongilo taldeak bere lanak beste formatu batzuetan ere argitaratu ditu, hala nola, diskak eta liburuak. ETC-entziklopedia

antzeztalde *iz* antzezle taldea.

Kantariak etortzen ziren alde guztietatik kontzertuak ematera, **antzeztaldeek** epopeiak antzezten zituzten. Juan Kruz Igerabide

antzeztaldi *iz* zerbait antzezten den aldietako bakoitza. ik **antzezaldi**.

Gogo biziz aritu zen eta antzematen zitzaion bere onenak ari zela ematen, bihotz guztiarekin ari zela, benetako malkoak eta musu kartsuak agertuz, oroitzapenen indar harrigarria erabiliz **antzeztaldi** bakoitzean. Ander Irizar

Jendarteko **antzeztaldi** isilpekoak egun batzuk hartu zituen. Juan Garzia

Gogo biziz aritu zen eta antzematen zitzaion bere onenak ari zela ematen, bihotz guztiarekin ari zela, benetako malkoak eta musu kartsuak agertuz, oroitzapenen indar harrigarria erabiliz **antzeztaldi** bakoitzean. Ander Irizar

antzezte *iz* antzerki lan baten emanaldia.

Libre da, hala ere, Hamleten irakurlea -edo ikus-entzulea, **antzezte** konkretuak uzten dion neurrian- garaien gainetiko hausnarbide sotilotan barrentzeko. Juan Garzia

Hondar aldian ohi nuenez, haren bixkarra xaflatu nuen, polliki, semearekin baino areago adiskidearekin ari nintzelako **antzezte** baldarrean. Aingeru Epaltza

Beti harrituko naute **antzezteari** buruz dituen ikusmoldeek. Lopez de Arana

antzeztoki *(orobat **antzestoki**)* **1** *iz* antzerki lanak errepresentatzen diren tokia.

Saltokien aurreko oihalak tolestu ziren; komedianteen **antzeztokiak** desagertu ziren puskaz puska; dantzak eta kantuak gelditu; antzezpenak isildu; suak itzali; orekarien soka tenkatuak laxatu. Karlos Zabala

-Japoniako Nô antzezlariek bost minutu ematen dute **antzeztokiaren** erdiraino heltzeko. Javi Cillero

Harrapakin bila, begirada erdizirkular batez begipean hartu nuen **antzeztoki** guztia. Aingeru Epaltza

Oso **antzeztoki** intimista prestatu dugu, taula txiki bat beste baten barruan kokatuta; meskita baten giroa sortu dugu, alfonbra eta kuxinekin, eta ikusle diren haurrak han eser daitezke. Berria - Kultura

Arras bestelakoa dirudi, **antzeztokitik** kanpo. Mirentxu Larrañaga

Ghettoetako jende bera aurkitzen zen ostera ere Manhattan behereko Orchard Street edota Hester Street-eko denda eta arropa lantegietan, eta ugariak ziren yiddish **antzeztokiak**. Koro Navarro

Broadwayko **antzeztokietan** urteetan aritu zen Hagen. Berria - Kultura

2 irud/hed

Eta gatazkaren **antzeztokian** gertatutako aldaketa izendagarrienak hiru asmorekin egin direla aurkitzen dut. Ibon Uribarri

Politika legegintzaren **antzeztoki** bilakatu dutelako. Pako Aristi

Kaleko **antzeztoki** handian, serioxeago ala alaixeago, ez zirudien jendeak arazo asko zuenik, baina nire antzera egon behar zen arazoz lepo zebilen jendea, eta ni oinezko guztien artean horiei antzematen saiatzen nintzen. Patxi Zubizarreta

Esku zabaleko herritar eta borrokalari askoren ahalegin itzelari esker iritsi gara **antzeztoki** politiko honetara. Berria - Harian

antzeztu, antzez(tu), antzezten *(orobat **antzestu** g.er.)* **1** du *ad* antzezlan bat jendaurrean eman edo jokatu.

Nahi duzun bezala **antzez** nazakezu: ez dio axola! Baita jantzita ere, nahi izanez gero, besoak behintzat -besoak besterik ez- biluzik baldin baditut. Josu Zabaleta

Altxatu oholtza, eta **antzez** iezadazue zeuen ikuskizunik hoberena. Juan Garzia

Izan ere, **antzez** daitezkeen itxurak dira horiek oro; barnean ditut nik erakutsi nahi eta ezinenak: besteok, ikur eta jantziak baino ez saminarenak. Juan Garzia

Harmoniazko koadro batean sartu behar dira guztiak, eta **antzez** daitekeena **antzeztu** ! Josu Zabaleta

2 (**antzez** hitz elkartuetan)

Gabriel ferekatzen zuten, eta hala ikasi zuen hark tragediazko bertso etenik eta baserritar **antzez** -txantxa baldarrik. Juan Garzia

Jatetxe batera joaten baginen, edo elkarrekin paseatzera, nire eskua bere eskuen artean hartu, eta, mintzo goren **antzez** -giroko batez, esango zidan: "Zin degiot, ene xarmant, ez naizela inoiz berorren karreraz jelos izanen". Anjel Lertxundi

---

antzigar **1** *iz* ihintz izoztua. ik **intzigar**.

Izotz eta **antzigar** , bedeinka ezazue Jauna, goretsi eta goraipatu menderen mendetan! Elizen arteko biblia

Asfalto gainean **antzigarra** . Lopez de Arana

Gaueko hotzak eserlekuko zuraren gainean utzitako **antzigarra** garbituta, eseri egin nintzen. Alberto Ladron Arana

Ordu erdi geroago, ezin konta ahala udaltzain eta isileko polizia zebiltzan hiriko kale hutsetan, isilik, urriko hozkirrian zapata-zolekin **antzigarra** zapaltzen. Jose Morales

Ibaiertzetako zuhaitzen gainera erortzen ari zen **antzigarrak** ibaiko ur gainean hartzen zuen kristal-hautsaren antzeko distira eta kolore, farol piztu berrietako argiaren eraginez. Anjel Lertxundi

Buztin onarekin eginda ez dagoenak edo gutxi erreta dagoenak berehala erakutsiko ditu bere akatsak izozteek eta **antzigarrak** jotzen dutenean. Santiago Iruretagoiena

Beharbada **antzigarrak** izerdia izoztuko zion, eta horregatik zen halakoa, hain gozoa eta aldi berean mingotsa, oraindik ederra baina dagoeneko zauritua, erori eta hiltzera destinatua. Agustin Otsoa

Ihintza desagertu zenean, **antzigarraren** itxurako zerbait, xehea eta garautsua, gelditu zen lur gainean. Elizen arteko biblia

Emakumeak, beren korta karratuetan, beren zuhaitz **antzigarrez** hautseztatuzko errezelen atzean bakarrik, loak harturik ziruditen apar lodi arin haren metatzearen azpian. Josu Zabaleta

Gernikaz oroitu da, berotik hotzerako aldaketa bortitza zela, **antzigarrezko** egunsentiak zirela, egun euri-bustien umeltasuna batzuetan, bat-bateko trumoi eta osti-zaparrada bestetan, belaunak oinaze minsorra eragiten zion bakoitzean. Pako Aristi

Goian hazten, goian sortzen eta hodeietan bilakatzen diren gainerako fenomenoak, denak, den-denak, elurra, haizeak, txingorra, **antzigar** izoztua eta izotz gotorra, uren gogortzaile handi eta ibai irrikatsuen nonahiko oztopo, oso erraza da hauek denak nola egiten diren eta zerk eragiten dituen aurkitzea eta gogoarekin ikustea, elementuei dagozkien propietateak ondo ezagutuz gero. Xabier Amuriza

Aurrera jarraitu zuen, kopetako likits hura hasi berria zen **antzigar** finak freskatzen zion bitartean. Joxemari Urteaga

Eta Dama Beltzak **antzigar** egun batez eraman zuen, huts eginda beharbada, zeren Lille-n haizea baizik ez dagoen tren geltoki batean niri itxaroteko kasketa berri bat baitzeraman jantzia. Josu Zabaleta

2 ***antzigar lerro*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Astronomian edo planeten zientzian, **antzigar lerroa** edo izozte lerroa, eguzki-nebulosaren barnean, zenbait konposatu lurrunkor (ura, amoniakoa, metanoa, karbono dioxidoa, karbono monoxidoa eta antzekoak) ale solido bihur daitezen, protoizarretik egon behar duten distantzia da. ETC-entziklopedia

3 ***antzigar zuri*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Antzigar zuria izotz zurizko orratz eta lumak eratzean datzan hidrometeoro bat da, laino izoztuko tantak gainazaletan izoztean sortzen dena. ETC-entziklopedia

Sasoian sasoikoak, baina altzariratu eta etxezuloratuak, **antzigar zuriaren** mingarra ogi beroaren gozoak eztitu dienak, herriko erlojutzar bat bezain aisiazko eta ordukoi... ETC-literatura, saiakera

---

antzigartuta *adlag* antzigarrak jota.

Hotzarekin zurrunduta eta erdi pot eginda atera ziren Etxabeko kaskora, zeruan mila izar eta ekialdera pixka bat argitzen hasi zen, bertan hiru arbola zeuden, haien enborrak **antzigartuta** eta kukuluetan, berriz, hosto iluntxa batzuk, orain astoak ez zuen aurrera egin nahi, Pablo Sastre

---

antzin ik **aitzin**.

---

antzina *(orobat **antxina** g.er. eta **antxiña** g.er.)* **1** *adlag* aspaldi, duela denbora asko.

Antzina bai izango zela gaueko iluntasuna ilun, beldurgarri, alegiazko izaki ezezagunez, alderrai gaiztoz betea zenean. Josu Zabaleta

Ene aitak zioenez, **antzina** -mendeak, urteak atzera?- Babiloniako loteria herri xehearen jokoa zen. Juan Garzia

Hiriburua, Nuuk, **antzina** Godthab. Bernardo Atxaga

Beste sasoi batzuetan ere bizi zen, **antzina** edo etorkizunean bizi zen orainean bezainbeste, orainaldian baino askozaz gehiago. Joseba Sarrionandia

Oraindik **antzina** ez dela. Koldo Zuazo

Antzina , oso latza zen ingurua; gaur egun gizakia beste izaki bizidun batzuen gainetik badago, hain zuzen, begiak eta belarriak eboluzioan zehar lortutako espezializazio handiak ahalbideturiko gaitasun bikainei esker dago, neurri handi batean. Irene Aldasoro

Antzina , hauen arduraduna Eleazarren seme Pinhas izan zen. Elizen arteko biblia

Antzina , emakumeek jasotzen zituzten agilandoak gizonengandik. Pello Zabala

Antzina elizatxo honi Aingeruen Santa Maria zeritzon. Askoren artean

Garai batean, **antzina** , bera gozoa zen, fidakorra. Anton Garikano

Jauna, uste dudanez, hiri hau **antzina** gizaki gaiztoen aterpe eta bizileku izan zen; baina orain ikusten dudanez, zure erruki oparoari esker, atsegin izan zaizun garaian era berezian azaldu duzu bertan zure neurrigabeko gupida. Askoren artean

Halere, **antzina** , bestelako mezuen igarletzat hartzen zituzten lehenago, eguraldi anuntziotan baino. Pello Zabala

Ganberaburua bera ezagutzen dut, **antzina** etxera etortzen zen sarritan, nolatan ez dut ezagutuko! Jose Morales

Jantokira begiratuz, non egon baitziren **antzina** hirurak lurreko suaren aurrean eserita, esan zion: [...]. Xabier Olarra

Zoazte, bada, Xiloko nire santutegira, **antzina** nire egoitza izateko aukeratu nuen tokira. Elizen arteko biblia

Gaur ere, **antzina** bezala, gipuzkoarrak trumilka igotzen dira Zelatuna. Txillardegi

Juduok zeuen janariak hartu eta legeak bete ahal izanen dituzue, **antzina** bezala. Elizen arteko biblia

Barre egin du, **antzina** ez bezala. Urtzi Urrutikoeetxea

Jainkoaren Ama Birjina guztiz dohatsuaren eliza bat zegoen han, **antzina** eraikia, baina garai hartan bertan behera utzia, inor hartaz arduratzen ez zela. Askoren artean

Erosketa egokia izan zela, oso bainuontzi ona zelako, **antzina** egiten zirenen modukoa. Unai Elorriaga

Ez bedi inor harri, beraz, gure ohiturak **antzina** genituenak bezain ankerrak ez direlako. Iñaki Iñurrieta

Garapen-bideko herrialdeetan aspaldi sortutako aberasgune bakanen ondoan ordea, pobregune gero eta ugariagoak ageri dira **antzina** industrializaturiko herrialdeetan. Koro Navarro

Ez daude **antzina** eroritako heroiekin, beren armaz horniturik Hilen Egoitzara jaitsi zirenekin. Elizen arteko biblia

Badirudi, beraz, Bizkaian ere hitz hori ezaguna zela **antzina**. Koldo Zuazo

Ipar Poloko tenperatura subtropikala zen **antzina**. Berria - Gaiak

Sorgin-zuhaitza ere deitzen omen zioten **antzina**. Pello Zabala

Eguberri garai honek bere oktabario edo zortziurrena izan ohi zuen, ez oso **antzina**. Pello Zabala

Urtetan irrikaturiko topaketa izan ezik, gainerako ia guztia zitzaion alferrikakoa **antzina** samarretik. Xabier Montoia

Ez ditu bere fantasma pertsonalak aintzat hartuko, baizik eta euskal mendietan **antzinatik** bizi direnak. Bernardo Atxaga

Irudi abstraktuak, "soilak" indar berriz piztu du, beraz, irudi figuratiboari dagokionez **antzinatik** zetorren baina askotan ahaztu izan den gai bat: adierazgarritasunaren auzia. Josu Zabaleta

Aztekek **antzinatik** ezagutzen zuten eta urarekin egindako nahaste edo irakina erabiltzen zuten jaki bezala: txokolatea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Frantzian **antzinatik** dator eskolako idazlanak saritzeko usadioa. Edorta Jimenez

Hil eta gero ere, bere aurkikuntza jainkozkoak bide, haren aintza, **antzinatik** zabaldua, zeruraino jasoa izan da. Xabier Amuriza

Antzinatik -eta Jainkoak hala aurreikusia zuelako- Portziunkula (sail txiki) deitu zitzaion tokiari, horrek izan behar baitzuen mundukorik ezer eduki nahi ez zutenen ondare-zatia. Askoren artean

Honek zeruan egon behar du oraindik, harik eta gauza guztiak eraberrituko diren garaia, Jainkoak **antzinatik** bere profeta santuen ahoz iragarria, iritsi arte. Elizen arteko biblia

Gaurdaino ere, harrigarri ere harrigarri, armairuen goreneko apalek badakarkigute **antzinatik** itzulian haren oroigarri preziaturik: blondazko txal beltz printz dirdaitsudunik; sedazko oihal fin-fin landurik. Juan Garzia

Gure hildakoak lurperatu izan ditugu **antzinatik** (harri-zirkuluetan bezala, errito gisa antzinako harrespiletan agertzen zirenak bezalakoak). Askoren artean

Emakumeari eredu sexual maskulinoa inposatu nahi hori oso **antzinatik** dator; antropologoen arabera, kultura nomadatik sedentariora pasatu eta nekazaritza hasi zenetik. Luis Elberdin

2 (izen gisa)

Aurrerantzean ez da ikaratuko; gaizkile horiek ez dute gehiago desegingo, **antzina** hartan, ene herri Israeli buruzagiak eman nizkionean, egin zuten bezala. Elizen arteko biblia

Eta nola etorri zitzaidan, **antzina** hartan Jobi bezala, Jainkoaren maradikatzeko gogoa! Joan Mari Irigoien

Halaber ohartarazi digu, inoiz gertatu ez zen Erdi Aro mitiko hark honako borda zapuztuxean, festakizun apalen batean edota mando baten arrantzan bizirik iraun duela oraindaino, eta **antzina** hartako egitate eta giza-jokaerak berdintsu gertatzen direla gaur bertan ere. Patziku Perurena

Antzina bateko nafar aparatu estatalaren ametsa. Iñaki Segurola

Baina zer balio die **antzina** bateko loria zaharrak, zer balio Italia batzeko ahaleginean Frantziaren eta Austriaren aurka isuritako odolak? Anjel Lertxundi

Santa Monika zen maiatzaren 4an, eta San Agustinen amaren jaiarekin lotzen zuten; baina, Robert Greavesek dioenez, **antzina** batez, Monikaren eguna maiatzaren 15ean zen. Pello Zabala

3 (hitza errepikatuz)

Antzina-antzina, gezi, lantza eta ezpatak ziren gerrarako arma agerikoak, eta borroka aurrez aurre egiten zen, oinez edo zaldiz. Uste dut hori faltsukeria dela, **antzina-antzinatik** datorren faltsukeria. Joxerra Garzia

Nonbait, kontu egin du inork ez duela lur-sail hori behar eta jabeak berak ahazturik daukala, baina hemengo nekazariak **antzina-antzinatik** elkartzen dira hor Pazko osteko lehen astea ospatzeko Pentsa genezake grekoek, **antzina-antzinatik** erro eta sufijoak izanik, hitz egiteko unean osatzen zituztela hitzak, erro eta atzizki horietaz baliaturik. Jose Morales

Bideak erdiz erdi pasarazten zuen **antzina-antzinako** kanposantu batetik, non miami indiarren hilotzak bizi-bizi zebiltzan, etsi ezinik tumuluen azpian. Anton Garikano

Elkarrizketaren aurreneko minututik iruditzen zitzaien nonbait eta noizbait ezagutu zutela, **antzina-antzinako** haurtzaroan, aitaren etxean, jai alaitsu batean, ume-tropelaren jolas alaien artean. Jose Morales

Bideak erdiz erdi pasarazten zuen **antzina-antzinako** kanposantu batetik, non miami indiarren hilotzak bizi-bizi zebiltzan, etsi ezinik tumuluen azpian. Anton Garikano

Aspaldikoa du jatorria, **antzina-antzinakoa**. Elizen arteko biblia

Antzina-antzinako garai urrunak. Jose Antonio Mujika

Nahiz eta Virgilek uste izan bazituela ikusmenezko oroitzapen **antzina-antzinakoak**, koloretako oroitzapenak barne [...], ez nuen garbi ikusten horiek zer ziren, benetako oroitzapenak, gogamenean zituen irudiak [...]. Xabier Olarra

Antzina-antzinakoen gisako dardara hori sentitzen duk, gizakia bezain zaharra. Xabier Olarra

4 ***antzina-antzinako*** ik **antzestral**.

"Antzina - **antzinako** kantuak albora utzita, metrika aldetik oso gorabeheratsuak baitira horiek, gainerako estrofa moldeek silaba kopurua eta errima dute oinarri, `mester de clerecía´ koek bezala". J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Metodo hori **antzina** - **antzinako** hebreerazko esamolde batean laburbil daiteke: Sitre Torah. Xabier Kintana

Ilunpeen bihotzean ehiztari, harrapakinaren usnan, hautatu, bereizi, esetsi..., senak agindutako estrategia **antzina** - **antzinakoa** jartzen zen martxan. Iñaki Iñurrieta

Animalion sexu harremanek **antzina** - **antzinako** aurrekari ezezagun bat errepikatzen dute ezinbestean, hots, orain dela bi mila bat milioi urte halabeharrez bereizi ziren bakterio biren arteko lehenbiziko txortaldi gogoangarria. Markos Zapiain

Soroko lana; laborarien lana, **antzina** - **antzinakoa**. Oskar Arana

Aspaldikoa du jatorria, **antzina** - **antzinakoa"**. Elizen arteko biblia

Benetako umorea, eskolaz kanpo mundu guztiak dakienez, jatorrizko jarrera ironikoa da, **antzina** - **antzinako** komedietako Eiron pertsonaia harena, edo gaur egungo eta beti-betiko pailazo "tonto"arena. Joxerra Garzia

Bideak erdiz erdi pasarazten zuen **antzina** - **antzinako** kanposantu batetik, non miami indiarren hilotzak bizi-bizi zebiltzan, etsi ezinik tumuluen azpian. Anton Garikano

5 ***antzinago***

Bestalde, **antzinago**, eguzkiaren orduan ibili ginenean, oraingo 8ak ziren goizeko 6ak, edo atzekoz-aurrera esanda, seietan argia zuten, orain 8tan bezainbat, justu; eta arratsean, berdin, seietan zuten iluna, orain 8tan bezalaxe. Pello Zabala

Logikaz, zenbat eta **antzinago**, orduan eta euskal gogo delako horren arrasto gehiago aurkituko lirateke... Iñaki Iñurrieta

Baina honek dardo partida bat merezi du. ehun urte baino **antzinago** hildako mutiko hari bezala, Jaungoikoak zoriona emango ziela zeruan Erlijioaren eta Espainiaren alde hildako umeei. Iñaki Iñurrieta

Bestalde, erreminizentziaz oroitzen da hemen Platon: **antzinago** eta antzina pentsatuaz berroroitzen gara; beraz, gizakia nonbait zegoen antzina. Askoren artean

6 ***antzinatiko*** *izlag*

Hizkuntzarekiko interes filosofikoa **antzinatikoa** da. Askoren artean

Said Raduan Husainiren presentziak mirespena sorrarazten zuen, eta haren ospea **antzinatikoa** zen. Patxi Zubizarreta

7 ***Antzinako Brontze Aro*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Kronologikoki, tokia, Castelluccioko faziesen barnean dago (Siziliako **antzinako Brontze Aroa**), eta sei eremutan banatzen da. ETC-entziklopedia

Monte Manganello kokagune protohistoriko bat da, non txabola herrixka bat zegoen **Antzinako Brontze Arotik** Erdi Brontze Arora arte. Piazza Armerina udal eremuan dago, hiritik 10 kilometro ingurura. ETC-entziklopedia

Antzinako Brontze-Aroa: Brontze-Aroaren lehen zatia K.a. 3300-2100. urte bitartean izan zen, baina ez leku guztietan batera. ETC-entziklopedia

8 ***Antzinako Egipto*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Backgammona ezagutzen den mahai jokorik zaharrenetakoa da. **Antzinako Egipto**, Sumer edota Mesopotamian duela jatorria uste da. Gaur egun jokatzen dugun

backgammona Persian asmatu zuen Buzurgmihrk. ETC-entziklopedia

Historian zehar monarka askok botere absolutua izan dute, askotan ustezko jatorri jainkotiar bategatik. **Antzinako Egipton**, adibidez, faraoia jainko bat zen. ETC-entziklopedia

9 *Antzinako Erroma* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Horrela, nagusiki zirkulu batekin errepresentatzen da; izan ere, **Antzinako Erroman** zirkuluak osotasuna irudikatzen zuen eta hiriaren erdian zegoen. ETC-entziklopedia

10 *antzinako euskara*

Beste bederatzi erro bereber-iberiarrak direla esan diot, eta gainerako guztiak, 23 erro, **antzinako euskara** europar-pirinearrari dagozkionak. Berria - Kultura

b. Ez euskalki batean ez bestean, ez **antzinako euskaran** ez oraingoan, inon eta inoiz izan ez diren osagaiak erabiltzeko grina. Koldo Zuazo

11 *Antzinako Grezia* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

"Ongi bat dago bakarrik: ezagutza; eta gaizki bat dago bakarrik: ezezagutza", zioen **Antzinako Greziako** filosofoak. ETC-prentsa

Antzinako Grezian adarbakarra ez da mitologia kontakizunetan ageri, baizik eta natur-zientzia liburuetan, adarbakarra India hurruneko benetako animalia zela uste baitzuten. ETC-entziklopedia

Antzinako Greziatik errenazimendu garaira arte garatutako ideia denak, Galenorenak barne, dieta eta higienea zainduz osasuntsu mantentzean oinarritu ziren. ETC-entziklopedia

Antzinako Grezia eta Antzinako Erromako medikuez gain Erdi Aroko Europar anitzek ere erreferentziatu izan zuten. ETC-entziklopedia

12 *Egiptoko Antzinako Inperio* *(corpusean ez dago; ETCn **40** agerraldi)*

Hala ere, hil tenplua nahiko ongi kontserbatua dago, eta **Egiptoko Antzinako Inperioko** hil tenpluen ohiko planoa jarraitzen du. ETC-entziklopedia

Nukleoa, **Egiptoko Antzinako Inperioko** beste piramide batzuetatik lapurtutako harrizko blokez osatua dago, Giza eta Saqqaratik datozenak. ETC-entziklopedia

Egiptoko Inperio Zaharra edo **Egiptoko Antzinako Inperioa** osatzen duten lau dinastietatik (III.etik VI.erarte) lehena da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antzina antzina** (3); **antzina antzina** (3); **antzina antzinako garai** (3); **antzina antzinakoa** (6); **antzina antzinatik** (10)
> **antzina batean** (3); **antzina bateko** (4); **antzina bezala egun** (3); **antzina egiten** (3); **antzina eraikia** (3); **antzina ez** (5)
> **antzina antzinatik** (10); **antzinatik bere** (3); **antzinatik izan** (4); **antzinatik zetorren** (4)

---

antzina *(orobat **antxina** g.er. eta **antxiña** g.er.)* **1** *adlag* aspaldi, duela denbora asko.

Antzina bai izango zela gaueko iluntasuna ilun, beldurgarri, alegiazko izaki ezezagunez, alderrai gaiztoz betea zenean. Josu Zabaleta

Ene aitak zioenez, **antzina** -mendeak, urteak atzera?- Babiloniako loteria herri xehearen jokoa zen. Juan Garzia

Hiriburua, Nuuk, **antzina** Godthab. Bernardo Atxaga

Beste sasoi batzuetan ere bizi zen, **antzina** edo etorkizunean bizi zen orainean bezainbeste, orainaldian baino askozaz gehiago. Joseba Sarrionandia

Oraindik **antzina** ez dela. Koldo Zuazo

Antzina, oso latza zen ingurua; gaur egun gizakia beste izaki bizidun batzuen gainetik badago, hain zuzen, begiak eta belarriak eboluzioan zehar lortutako espezializazio handiak ahalbideturiko gaitasun bikainei esker dago, neurri handi batean. Irene Aldasoro

Antzina, hauen arduraduna Eleazarren seme Pinhas izan zen. Elizen arteko biblia

Antzina, emakumeek jasotzen zituzten agilandoak gizonengandik. Pello Zabala

Antzina elizatxo honi Aingeruen Santa Maria zeritzon. Askoren artean

Garai batean, **antzina**, bera gozoa zen, fidakorra. Anton Garikano

Jauna, uste dudanez, hiri hau **antzina** gizaki gaiztoen aterpe eta bizileku izan zen; baina orain ikusten dudanez, zure erruki oparoari esker, atsegin izan zaizun garaian era berezian azaldu duzu bertan zure neurrigabeko gupida. Askoren artean

Halere, **antzina**, bestelako mezuen igarletzat hartzen zituzten lehenago, eguraldi anuntziotan baino. Pello Zabala

Ganberaburua bera ezagutzen dut, **antzina** etxera etortzen zen sarritan, nolatan ez dut ezagutuko! Jose Morales

Jantokira begiratuz, non egon baitziren **antzina** hirurak lurreko suaren aurrean eserita, esan zion: [...]. Xabier Olarra

Zoazte, bada, Xiloko nire santutegira, **antzina** nire egoitza izateko aukeratu nuen tokira. Elizen arteko biblia

Gaur ere, **antzina** bezala, gipuzkoarrak trumilka igotzen dira Zelatuna. Txillardegi

Juduok zeuen janariak hartu eta legeak bete ahal izanen dituzue, **antzina** bezala. Elizen arteko biblia

Barre egin du, **antzina** ez bezala. Urtzi Urrutikoeetxea

Jainkoaren Ama Birjina guztiz dohatsuaren eliza bat zegoen han, **antzina** eraikia, baina garai hartan bertan behera utzia, inor hartaz arduratzen ez zela. Askoren artean

Erosketa egokia izan zela, oso bainuontzi ona zelako, **antzina** egiten zirenen modukoa. Unai Elorriaga

Ez bedi inor harri, beraz, gure ohiturak **antzina** genituenak bezain ankerrak ez direlako. Iñaki Iñurrieta

Garapen-bideko herrialdeetan aspaldi sortutako aberasgune bakanen ondoan ordea, pobregune gero eta ugariagoak ageri dira **antzina** industrializaturiko herrialdeetan. Koro Navarro

Ez daude **antzina** eroritako heroiekin, beren armaz horniturik Hilen Egoitzara jaitsi zirenekin. Elizen arteko biblia

Badirudi, beraz, Bizkaian ere hitz hori ezaguna zela **antzina**. Koldo Zuazo

Ipar Poloko tenperatura subtropikala zen **antzina**. Berria - Gaiak

Sorgin-zuhaitza ere deitzen omen zioten **antzina**. Pello Zabala

Eguberri garai honek bere oktabario edo zortziurrena izan ohi zuen, ez oso **antzina**. Pello Zabala

Urtetan irrikaturiko topaketa izan ezik, gainerako ia guztia zitzaion alferrikakoa **antzina** samarretik. Xabier Montoia

Ez ditu bere fantasma pertsonalak aintzat hartuko, baizik eta euskal mendietan **antzinatik** bizi direnak. Bernardo Atxaga

Irudi abstraktuak, "soilak" indar berriz piztu du, beraz, irudi figuratiboari dagokionez **antzinatik** zetorren baina askotan ahaztu izan den gai bat: adierazgarritasunaren auzia. Josu Zabaleta

Aztekek **antzinatik** ezagutzen zuten eta urarekin egindako nahaste edo irakina erabiltzen zuten jaki bezala: txokolatea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Frantzian **antzinatik** dator eskolako idazlanak saritzeko usadioa. Edorta Jimenez

Hil eta gero ere, bere aurkikuntza jainkozkoak bide, haren aintza, **antzinatik** zabaldua, zeruraino jasoa izan da. Xabier Amuriza

Antzinatik -eta Jainkoak hala aurreikusia zuelako- Portziunkula (sail txiki) deitu zitzaion tokiari, horrek izan behar baitzuen mundukorik ezer eduki nahi ez zutenen ondare-zatia. Askoren artean

Honek zeruan egon behar du oraindik, harik eta gauza guztiak eraberrituko diren garaia, Jainkoak **antzinatik** bere profeta santuen ahoz iragarria, iritsi arte. Elizen arteko biblia

Gaurdaino ere, harrigarri ere harrigarri, armairuen goreneko apalek badakarkigute **antzinatik** itzulian haren oroigarri preziaturik: blondazko txal beltz printz dirdaitsudunik; sedazko oihal fin-fin landurik. Juan Garzia

Gure hildakoak lurperatu izan ditugu **antzinatik** (harri-zirkuluetan bezala, errito gisa antzinako harrespiletan agertzen zirenak bezalakoak). Askoren artean

Emakumeari eredu sexual maskulinoa inposatu nahi hori oso **antzinatik** dator; antropologoen arabera, kultura nomadatik sedentariora pasatu eta nekazaritza hasi zenetik. Luis Elberdin

2 (izen gisa)

Aurrerantzean ez da ikaratuko; gaizkile horiek ez dute gehiago desegingo, **antzina** hartan, ene herri Israeli buruzagiak eman nizkionean, egin zuten bezala. Elizen arteko biblia

Eta nola etorri zitzaidan, **antzina** hartan Jobi bezala, Jainkoaren maradikatzeko gogoa! Joan Mari Irigoien

Halaber ohartarazi digu, inoiz gertatu ez zen Erdi Aro mitiko hark honako borda zapuztuxean, festakizun apalen batean edota mando baten arrantzan bizirik iraun duela oraindaino, eta **antzina** hartako egitate eta giza-jokaerak berdintsu gertatzen direla gaur bertan ere. Patziku Perurena

Antzina bateko nafar aparatu estatalaren ametsa. Iñaki Segurola

Baina zer balio die **antzina** bateko loria zaharrak, zer balio Italia batzeko ahaleginean Frantziaren eta Austriaren aurka isuritako odolak? Anjel Lertxundi

Santa Monika zen maiatzaren 4an, eta San Agustinen amaren jaiarekin lotzen zuten; baina, Robert Greavesek dioenez, **antzina** batez, Monikaren eguna maiatzaren 15ean zen. Pello Zabala

3 (hitza errepikatuz)

Antzina-antzina, gezi, lantza eta ezpatak ziren gerrarako arma agerikoak, eta borroka aurrez aurre egiten zen, oinez edo zaldiz. Uste dut hori faltsukeria dela, **antzina-antzinatik** datorren faltsukeria. Joxerra Garzia

Nonbait, kontu egin du inork ez duela lur-sail hori behar eta jabeak berak ahazturik daukala, baina hemengo nekazariak **antzina-antzinatik** elkartzen dira hor Pazko osteko lehen astea ospatzeko Pentsa genezake grekoek, **antzina-antzinatik** erro eta sufijoak izanik, hitz egiteko unean osatzen zituztela hitzak, erro eta atzizki horietaz baliaturik. Jose Morales

Bideak erdiz erdi pasarazten zuen **antzina-antzinako** kanposantu batetik, non miami indiarren hilotzak bizi-bizi zebiltzan, etsi ezinik tumuluen azpian. Anton Garikano

Elkarrizketaren aurreneko minututik iruditzen zitzaien nonbait eta noizbait ezagutu zutela, **antzina-antzinako** haurtzaroan, aitaren etxean, jai alaitsu batean, ume-tropelaren jolas alaien artean. Jose Morales

Bideak erdiz erdi pasarazten zuen **antzina-antzinako** kanposantu batetik, non miami indiarren hilotzak bizi-bizi zebiltzan, etsi ezinik tumuluen azpian. Anton Garikano

Aspaldikoa du jatorria, **antzina-antzinakoa**. Elizen arteko biblia

Antzina-antzinako garai urrunak. Jose Antonio Mujika

Nahiz eta Virgilek uste izan bazituela ikusmenezko oroitzapen **antzina-antzinakoak**, koloretako oroitzapenak barne [...], ez nuen garbi ikusten horiek zer ziren, benetako oroitzapenak, gogamenean zituen irudiak [...]. Xabier Olarra

Antzina-antzinakoen gisako dardara hori sentitzen duk, gizakia bezain zaharra. Xabier Olarra

4 *antzina-antzinako* ik **antzestral**.

"Antzina - antzinako kantuak albora utzita, metrika aldetik oso gorabeheratsuak baitira horiek, gainerako estrofa moldeek silaba kopurua eta errima dute oinarri, `mester de clerecía´ koek bezala". J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Metodo hori **antzina - antzinako** hebreerazko esamolde batean laburbil daiteke: Sitre Torah. Xabier Kintana

Ilunpeen bihotzean ehiztari, harrapakinaren usnan, hautatu, bereizi, esetsi..., senak agindutako estrategia **antzina - antzinakoa** jartzen zen martxan. Iñaki Iñurrieta

Animalion sexu harremanek **antzina - antzinako** aurrekari ezezagun bat errepikatzen dute ezinbestean, hots, orain dela bi mila bat milioi urte halabeharrez bereizi ziren bakterio biren arteko lehenbiziko txortaldi gogoangarria. Markos Zapiain

Soroko lana; laborarien lana, **antzina - antzinakoa**. Oskar Arana

Aspaldikoa du jatorria, **antzina - antzinakoa"**. Elizen arteko biblia

Benetako umorea, eskolaz kanpo mundu guztiak dakienez, jatorrizko jarrera ironikoa da, **antzina - antzinako** komedietako Eiron pertsonaia harena, edo gaur egungo eta beti-betiko pailazo "tonto"arena. Joxerra Garzia

Bideak erdiz erdi pasarazten zuen **antzina - antzinako** kanposantu batetik, non miami indiarren hilotzak bizi-bizi zebiltzan, etsi ezinik tumuluen azpian. Anton Garikano

5 *antzinago*

Bestalde, **antzinago**, eguzkiaren orduan ibili ginenean, oraingo 8ak ziren goizeko 6ak, edo atzekoz-aurrera esanda, seietan argia zuten, orain 8tan bezainbat, justu; eta arratsean, berdin, seietan zuten iluna, orain 8tan bezalaxe. Pello Zabala

Logikaz, zenbat eta **antzinago**, orduan eta euskal gogo delako horren arrasto gehiago aurkituko lirateke... Iñaki Iñurrieta

Baina honek dardo partida bat merezi du. ehun urte baino **antzinago** hildako mutiko hari bezala, Jaungoikoak zoriona emango ziela zeruan Erlijioaren eta Espainiaren alde hildako umeei. Iñaki Iñurrieta

Bestalde, erreminizentziaz oroitzen da hemen Platon: **antzinago** eta antzina pentsatuaz berroroitzen gara; beraz, gizakia nonbait zegoen antzina. Askoren artean

6 *antzinatiko* *izlag*

Hizkuntzarekiko interes filosofikoa **antzinatikoa** da. Askoren artean

Said Raduan Husainiren presentziak mirespena sorrarazten zuen, eta haren ospea **antzinatikoa** zen. Patxi Zubizarreta

7 *Antzinako Brontze Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Kronologikoki, tokia, Castelluccioko faziesen barnean dago (Siziliako **antzinako Brontze Aroa**), eta sei eremutan banatzen da. ETC-entziklopedia

Monte Manganello kokagune protohistoriko bat da, non txabola herrixka bat zegoen **Antzinako Brontze Arotik** Erdi Brontze Arora arte. Piazza Armerina udal eremuan dago, hiritik 10 kilometro ingurura. ETC-entziklopedia

Antzinako Brontze-Aroa: Brontze-Aroaren lehen zatia K.a. 3300-2100. urte bitartean izan zen, baina ez leku guztietan batera. ETC-entziklopedia

8 *Antzinako Egipto* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Backgammona ezagutzen den mahai jokorik zaharrenetakoa da. **Antzinako Egipto**, Sumer edota Mesopotamian duela jatorria uste da. Gaur egun jokatzen dugun backgammona Persian asmatu zuen Buzurgmihrk. ETC-entziklopedia

Historian zehar monarka askok botere absolutua izan dute, askotan ustezko jatorri jainkotiar bategatik. **Antzinako Egipton**, adibidez, faraoia jainko bat zen. ETC-entziklopedia

9 *Antzinako Erroma* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Horrela, nagusiki zirkulu batekin errepresentatzen da; izan ere, **Antzinako Erroman** zirkuluak osotasuna irudikatzen zuen eta hiriaren erdian zegoen. ETC-entziklopedia

10 *antzinako euskara*

Beste bederatzi erro bereber-iberiarrak direla esan diot, eta gainerako guztiak, 23 erro, **antzinako euskara** europar-pirinearrari dagozkionak. Berria - Kultura

b. Ez euskalki batean ez bestean, ez **antzinako euskaran** ez oraingoan, inon eta inoiz izan ez diren osagaiak erabiltzeko grina. Koldo Zuazo

11 *Antzinako Grezia* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

"Ongi bat dago bakarrik: ezagutza; eta gaizki bat dago bakarrik: ezezagutza", zioen **Antzinako Greziako** filosofoak. ETC-prentsa

Antzinako Grezian adarbakarra ez da mitologia kontakizunetan ageri, baizik eta natur-zientzia liburuetan, adarbakarra India hurruneko benetako animalia zela uste baitzuten. ETC-entziklopedia

Antzinako Greziatik errenazimendu garaira arte garatutako ideia denak, Galenorenak barne, dieta eta higienea zainduz osasuntsu mantentzean oinarritu ziren. ETC-entziklopedia

Antzinako Grezia eta Antzinako Erromako medikuez gain Erdi Aroko Europar anitzek ere erreferentziatu izan zuten. ETC-entziklopedia

12 *Egiptoko Antzinako Inperio* *(corpusean ez dago; ETCn **40** agerraldi)*

Hala ere, hil tenplua nahiko ongi kontserbatua dago, eta **Egiptoko Antzinako Inperioko** hil tenpluen ohiko planoa jarraitzen du. ETC-entziklopedia

Nukleoa, **Egiptoko Antzinako Inperioko** beste piramide batzuetatik lapurtutako harrizko blokez osatua dago, Giza eta Saqqaratik datozenak. ETC-entziklopedia

Egiptoko Inperio Zaharra edo **Egiptoko Antzinako Inperioa** osatzen duten lau dinastietatik (III.etik VI.erarte) lehena da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzina antzina (3); **antzina antzina** (3); **antzina antzinako garai** (3); **antzina antzinakoa** (6); **antzina antzinatik** (10)

antzina batean (3); **antzina bateko** (4); **antzina bezala egun** (3); **antzina egiten** (3); **antzina eraikia** (3); **antzina ez** (5)
antzina antzinatik (10); **antzinatik bere** (3); **antzinatik izan** (4); **antzinatik zetorren** (4)

---

antzinako 1 *izlag* aspaldikoa, duelako denbora askokoa.

Eta bestetik, kirol-literatura da, kirol hitzaren bi adieretan: **antzinakoan** eta gaurkoan, "jolas" baita batik bat, baina baita "norgehiagoka" ere. Xabier Olarra

Dantzarako areto handia eta beste gela batzuk. ordezko hortzak erosten ditugu, urrea, platinoa, **antzinako** bitxiak. "Ze urre, ze bitxi eta ze bitxiondo! Lopez de Arana

Sodomako **antzinako** hiria! Fernando Rey

Kolonia garaiak oso dira **antzinako** kontuak, eta bezatu beharrekoarekin erabiltzen diren tratu moduak, ai patu beharrik ez dagoen beste zenbait arlotan bezalaxe, sano findu dira. Iñigo Aranbarri

Gehientsuenak Frantziako gorteko amoranteei buruzko istorioak ziren; bazen han zenbait monarkaren ohitura bitxiei buruzko libururik, edota **antzinako** monje errusiarren abenturen ingurukorik ere. Mirentxu Larrañaga

Antzinakoak ziruditen argi geldoen argitan eman genuen paseo bat afalondoan. Joxean Agirre

Hiriburuko presondegian sartu zuten, harrizko horma garai alanbreztatuak zituen **antzinako** presondegian, hain hotza ez balitz, infernua zatekeen. Jon Maia

Antzinako txinatar idazkera 10.000 zeinuren konbinaketatik sortua dela diote hizkuntzalariek. Iñigo Aranbarri

Koadro hau, dagoeneko, hamabi giza belaunaldik ikusia dute: **antzinako** garaietatik hona bizi izan den gizatasunaren bostenak. Felipe Juaristi

Plazer handienetatik bat XII. mendeko **antzinako** frantsesez idatzi testu bat itzultzea, "Adam Le Bossu", ene ustez, izan zen. Piarres Aintziart

-Black soul da hori, gure kultura desberdina baita -esan zuen Gregoryk-, eta oraingo gure gazteak ere **antzinakoen** sustraietara itzultzen ari dira. Iñaki Zabaleta

Kontu handiz hasi da hodi txiki estua eratzen, jadanik mekanizatutako **antzinako** erritual magiko batean bezala. Sonia Gonzalez

Urteak dituk inork aintzakotzat hartzen ez hauela; ez ikasleek, ez irakasleek, ez **antzinako** lagunek ere. Jokin Muñoz

Eta kontu-kontari hasi zen, lasai, ia axolagabeki, doinu goibelez eta jario betiberdineko ahots sakonez, haurrei **antzinako** heroien ipuinak kontatzen dizkien agureak bezala. Jose Morales

2 *antzina-antzinako*

Antzina-antzinako garai batetik zetorren, izebez eta lehengusinez osatutako tribu-egitura konplexu batetik. Ander Irizar

Ilunpeen bihotzean ehiztari, harrapakinaren usnan, hautatu, bereizi, esetsi..., senak agindutako estrategia **antzina-antzinakoa** jartzen zen martxan. Iñaki Iñurrieta

Animalion sexu harremanek **antzina-antzinako** aurrekari ezezagun bat errepikatzen dute ezinbestean, hots, orain dela bi mila bat milioi urte halabeharrez bereizi ziren bakterio biren arteko lehenbiziko txortaldi gogoangarria. Markos Zapiain

Soroko lana; laborarien lana, **antzina-antzinakoa**. Oskar Arana

Berdin dio; kantua ez da polita sikiera; tristea da, **antzina-antzinakoa**. Eskarne Mujika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzina antzinako garai (3); **antzinako alemanez** (4); **antzinako argazkiak** (3); **antzinako bat** (5); **antzinako denboretan** (6); **antzinako egiptoko** (3); **antzinako egunetan** (4); **antzinako eran** (3); **antzinako erara** (4); **antzinako erregeen** (4); **antzinako erregimenaren** (3); **antzinako erroman** (3); **antzinako erromatarra** (3); **antzinako etxe** (4); **antzinako euskal** (6); **antzinako filosofia** (4); **antzinako filosofiak** (3); **antzinako filosofoek** (3); **antzinako frantsesez** (3); **antzinako frantsesezko** (4); **antzinako garai batean** (4); **antzinako garaietako** (3); **antzinako garaietan** (16); **antzinako gizarte** (3); **antzinako gizon** (4); **antzinako goi alemanez** (4); **antzinako grezia** (3); **antzinako greziako** (4); **antzinako grezian** (4); **antzinako guardia** (4); **antzinako gure** (5); **antzinako herri** (7); **antzinako herrialde** (3); **antzinako hiri** (4); **antzinako hizkuntza** (4); **antzinako idazleen** (3); **antzinako izena** (3); **antzinako izkribuetarik hasita** (4); **antzinako jainko** (5); **antzinako jainkoak** (3); **antzinako kantuak** (3); **antzinako kontua** (4); **antzinako kontuak** (6); **antzinako kultura** (3); **antzinako leloak** (3); **antzinako morrontzara** (3); **antzinako mundua** (3); **antzinako munduko** (5); **antzinako musika zikloaren** (3); **antzinako musikaren** (3); **antzinako musikari** (3); **antzinako mutilagun harekin** (4); **antzinako ohitura** (4); **antzinako ohituren** (3); **antzinako olinpiar** (6); **antzinako rock** (3); **antzinako zibilizazio** (3)

baina antzinako (6); **baita antzinako** (4); **bere antzinako** (12); **beren antzinako** (5); **bertan antzinako** (3); **den antzinako** (4); **dira antzinako** (3); **du antzinako** (4); **duen antzinako** (5); **edo antzinako** (4); **ere antzinako** (4); **ez antzinako** (6); **ez da antzinako** (3); **greziako antzinako** (3); **gure antzinako** (13); **izan antzinako** (3); **nire antzinako** (4); **oso antzinako** (4); **zela antzinako mutilagun** (4); **zen antzinako** (14); **ziren antzinako** (8); **zituen antzinako** (9); **zuen antzinako** (9); **zuten antzinako** (5)

antzina antzinakoa (6); **antzinakoa da** (7); **antzinakoa zen** (3); **luzera neurri antzinakoa** (3); **oso antzinakoa** (6)

antzinakoek ez (3); **baina antzinakoek** (3)

antzinakoen artean (8)

---

antzinakoan *adlag* oso aspaldi.

Hodi haren ondoan, emakume eder batek ilea behin eta berriro orrazten ematen zuen denbora guztia, **antzinakoan** agertzen ziren lamia haien gisan, orraztu eta orraztu... Paddy Rekalde

---

antzinakotasun *iz* antzinatasuna.

Gure artean, askotan, euskal herriaren **antzinakotasuna** ohoragarritzat hartzen da; Ortega-rentzat herri baten gaztetasuna da harrogarria; eta **antzinakotasuna**, arraza primitibo eta garaezinaren seinale, edo gutxienez susmarazgarri. Joxe Azurmendi

Antzinakotasun eskergaren irudipenari bertzerik gaineratu zitzaion: azkengabea izatearena, lazgarria izatearena, konplexuki zentzugabea izatearena.

Proposamen horiek ziren: beheranzko malgutasuna, soldata igoera produktibitatearen gorakadari eta absentismoaren jaitsierari uztartzea eta **antzinakotasuna** izoztea edo ezabatzea. Berria - Ekonomia

---

antzinaldi *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* antzinatea.

Nolanahi ere, kristautasunaren lehenbiziko agerpena da, eta ondorioz, garai horretan bat egiten dute **antzinaldi** grekolatinoa eta paganoa ekialdeko kulturarekin harremana duen kristautasunarekin . ETC-prentsa

La1k **antzinaldian** girotutako fikzio ekoizpenaren alde apustu egin du berriz ere. ETC-prentsa

---

Antzinaro 1 *iz* historia banatzen den zatietako lehena, Historiaurrearen bukaeratik Erdi Aroaren hasiera artekoa, hots, Erromatarren Inperioaren suntsidura arte hedatzen dutena. ik **antzinate**.

Garaia zen, **antzinaroko** Itsasoetako Erregeak bezalakoa, eta inguruko guztien gainetik ikus zitekeen.Adinekoa zirudien eta, aldi berean, sasoi ederrekoa. Agustin Otsoa

Antzinaroan, Aristotelesek emandako azalpenekin ulertzen zituzten zientzialariek gorputzen higiduraren gorabeherak. Berria - Harian

Antzinaroko Mediterraneo hegietako andere saldoko partaide zela irudikatzera iritsi zen. Itxaro Borda

Antzinaroko alfabeto misteriotsu baten ikurrak ziruditen. Alberto Ladron Arana

2 *Antzinaro Berantiar (corpusean ez dago; ETCn **77** agerraldi)*

Antzinaro Berantiarra, Antzinaro Beranta, Antzinate Beranta edo Antzinate Berantiarra II. mendea II. mendeko krisialdetik, Erdi Aroaren hasiera, VIII. mendea VIII. mendera arteko iragapen aroa da. ETC-entziklopedia

Ostilamenduko osagaiak zein motatakoak diren eta haien aberastasun erlatiboa kontuan izanik, eta Erdi Aroko hilobietan ohikoa izaten den soiltasunarekin alderaturik, **antzinaro berantiarreko** garairen batekoak direla esan daiteke ziur -VI-VII-VII. mendeen bitartekoa-. ETC-prentsa

Hala, III. mendetik VII.era **Antzinaro berantiarreko** bi potentzia nagusien arteko gatazkek ez zuten ia etenik izan. ETC-prentsa

Aurten, Bizkaiko haizeola zaharrenetako hiru ikertuko dituzte: erromatarren garaikoak eta **Antzinaro Berantiarrekoak** Diman, Galdakaon eta Artzentalesen. ETC-prentsa

Bigarrenaren arabera, dituen agindu zorrotzengatik hurbiltzen da kristautasunera **Antzinaro berantiarreko** moral filosofikoa, aurreko tradizioarekin haustura gutxi gorabehera osoa sortuaz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alde batetik, Zarauzko Santa Mariako adibideak erakusten duenez, kasu batzuetan, behintzat, okupazio-sekuentziek jarraipena izan zuten **Antzinaro berantiarrean**, baina egitura prekarioagoetan oinarrituta. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *Antzinaro Klasiko*

Berlingo Pergamo museoko **antzinaro klasikoko** altxorrak erakusketak. Berria - Kultura

4 *Berant Antzinaro* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Beste batzuek, Henri Pirennek edo Peter Brownek kasu, aldiz, Erdi Aroaren hastapena VII. eta VIII. mendeetan kokatzen dute, islamaren hedapenarekin batera. Garai horri Antzinaro Berantiarra edo **Berant Antzinaroa** deitzen diote. ETC-entziklopedia

---

antzinatasun *(orobat **antxinatasun** g.er. eta **antxiñatasun** g.er.)* ***1*** *iz antzinakoa denaren nolakotasuna; antzinakoa izateko zertzelada.*

Antzinatasuna eta modernitatea askotan gertu daudela erakutsi ziguten ostiral arratsean. Berria - Kultura

San Telmok **antzinatasunaren** eta garaikidetasunaren arteko nahasketa eta margolanak hartzeko "nolabaiteko zilegitasuna" omen dauka, eraikina bera kontuan hartuta. Berria - Kultura

Ale haiek guztiak eta beste antzeko asko batzen zituen haria -hitza- hauxe zen: **antzinatasuna**. Bernardo Atxaga

Antzinatasuna komeni zaio erlijioari, zeren eta maiz gehiago sinesten baitugu gauzetan zenbat eta urrunagokoak izan. Iñaki Iñurrieta

Alde batetik, euskararen berezitasuna bat zetorren sentsibilitate berriarekin; bestetik, berekin zuten umiliazioa, eta horrexegatik aldarrikatu zuten, Garibaik zein beste apologistek aurrena, erromantiko euskaldunek gero -adar makurtuak bezala erreakzionatuz, noski-, euskararen **antzinatasuna**. Bernardo Atxaga

Hizkera horren **antzinatasuna** salatzen du, ezbairik gabe, kidetasunak. Koldo Zuazo

Antzinatasunaren lilurak gidatzen du gure iritzi estetikoa? Pako Aristi

Monastegietako horma zaharrak, ilunpean beltzago, arkaikoago; **antzinatasunaren** lekuko idor. Txillardegi

Haren zerrendan asko dira **antzinatasunaren** eta eremu zabaltasunaren baldintza zuzen betetzen duten hitzak: *albo, amaitu, apurtu, astiro, astun, ganora, gerizpe, jaramon, neba, okaran, oratu, papar, ugazaba...*, eta, zalantzarik gabe, mendebaleko hiztunek ez ezik, beste edozein euskaldunek ere. Koldo Zuazo

Haietariko zenbait, bost mendeko **antzinatasunekoak**. Jon Muñoz

Dimisioaren berri izan zuenean, gobernuak arren eta arren eskatu zion berriro kontsidera zezala hartutako erabakia, eta, dimisioa alde batera lagata, onartuko zutela berriz ere lehengo baldintza berdinekin, **antzinatasuna** eta paga estrak ahaztu gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

Londresko British Museumek 4.000 urteko **antzinatasuna** duen eskultura bat erosi berri du 2,2 milioi eurotan. Berria - Kultura

32 urteko **antzinatasunarekin**, eta saldu duenarengatik jaso duen ehunekoa batuta, 856,32 euro kobratzen ditu. Berria - Harian

2 (izenondoekin)

Heraldikaren hizkeran, otsoak etsaienganako ankerkeria adierazten du; haritzak, **antzinatasun** gurgarria. Koro Navarro

Oso ezaguna ez izan arren, **antzinatasun** eta ospe handikoa dugu Tro Breiz izeneko erromesaldia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Oraino nazio berria bada ere **antzinatasun** handia ukanik, Euskaldunek naturatik hullan iraun dute, eta abantaila honi zor diote halako atrebentzia bat asmatzeetan eta eginkizunetan, bat-bateko poesigintzarako dohainean nabarmenki ageri dena. Berria - Kultura

Don Jose Larrea, inoiz aitari entzundako istorio gazi-gozoen protagonista, abizenaren **antzinatasun** iluna argitzen eta zerukoak ez diren aintzak bilatzen aritua. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ingalaterran, gauza berriek ere, zurezkoak eta adreilu gorrikoak direnean bereziki, denbora gutxi behar dute **antzinatasun** aire andeatu baina noblea izateko. Ramon Saizarbitoria

Harri horiz eraikia, **antzinatasun** kutsu harrigarria du Eta alboan dorre borobil batek ematen dio babesa. Txillardegi

Bai, gogorra izan zen: are gehiago kontuan harturik ez zuela bost hilabete horietako soldata berreskuratu, eta itzulitakoan gutxieneko langile-kategoria ezarri ziotela, **antzinatasun**-sari guztiak ezabatzeaz gain. Iban Zaldua

Laburtasun hori auziaren iraupenaren eta aurrena epaitua izateko **antzinatasun** eskubidearen arabera neurtu behar da. Juan Martin Elexpuru

Ingalaterran, gauza berriek ere, zurezkoak eta adreilu gorrikoak direnean bereziki, denbora gutxi behar dute **antzinatasun** aire andeatu baina noblea izateko. Ramon Saizarbitoria

Ez ote ziren haiek ere ingelesek zaharberritze lanerako duten maisutasunaren, edo gauza berriei **antzinatasun** itxura emateko artearen fruitu. Ramon Saizarbitoria

4 norbaitek enplegu edo kargu baten daraman denbora.

Hamar urte baino gehiagoko **antzinatasuna** daukaten langileek 55 egun kobratu ahalko dituzte lan egindako urte bakoitzeko. Berria - Ekonomia

32 urteko **antzinatasunarekin**, eta saldu duenarengatik jaso duen ehunekoa batuta, 856,32 euro kobratzen ditu. Berria - Harian

Beste gai batzuk negoziatzeko prest agertu zen Osakidetzaren zuzendaria, besteak beste, interinoen **antzinatasuna** aitortzea. Berria - Euskal Herria

Antzinatasuna aintzat hartuta, langile bakoitzak 60.000 eurotik gora jaso ahalko du. Berria - Ekonomia

Datorren urte hasieran, **antzinatasunaren** soldata plusa bost urteko epean jasotzetik hiru urteko epean jasotzera pasako dira, eta 12 lansaritan ordaindu ordez, 15 lansaritan ordainduko zaie. Berria - Euskal Herria

5 *antzinatasun osagarri* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Hauei, erakundeko zuzendaritzak **antzinatasun osagarria** kendu nahi die, 1.800 euroko bi ordainketa osagarriren truke. ETC-prentsa

Harentzat, ez da feudala beharginei **antzinatasun osagarriak** kentzea eta lanaldiak luzatzea, antza: pernada eskubidea eskatzen ez den bitartean, dena ondo. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antzinatasunaren arabera** (3)

---

antzinatasun *(orobat **antxinatasun** g.er. eta **antxiñatasun** g.er.)* ***1*** *iz antzinakoa denaren nolakotasuna; antzinakoa izateko zertzelada.*

Antzinatasuna eta modernitatea askotan gertu daudela erakutsi ziguten ostiral arratsean. Berria - Kultura

San Telmok **antzinatasunaren** eta garaikidetasunaren arteko nahasketa eta margolanak hartzeko "nolabaiteko zilegitasuna" omen dauka, eraikina bera kontuan hartuta. Berria - Kultura

Ale haiek guztiak eta beste antzeko asko batzen zituen haria -hitza- hauxe zen: **antzinatasuna**. Bernardo Atxaga

Antzinatasuna komeni zaio erlijioari, zeren eta maiz gehiago sinesten baitugu gauzetan zenbat eta urrunagokoak izan. Iñaki Iñurrieta

Alde batetik, euskararen berezitasuna bat zetorren sentsibilitate berriarekin; bestetik, berekin zuten umiliazioa, eta horrexegatik aldarrikatu zuten, Garibaik zein beste apologistek aurrena, erromantiko euskaldunek gero -adar makurtuak bezala erreakzionatuz, noski-, euskararen **antzinatasuna**. Bernardo Atxaga

Hizkera horren **antzinatasuna** salatzen du, ezbairik gabe, kidetasunak. Koldo Zuazo

Antzinatasunaren lilurak gidatzen du gure iritzi estetikoa? Pako Aristi

Monastegietako horma zaharrak, ilunpean beltzago, arkaikoago; **antzinatasunaren** lekuko idor. Txillardegi

Haren zerrendan asko dira **antzinatasunaren** eta eremu zabaltasunaren baldintza zuzen betetzen duten hitzak: *albo, amaitu, apurtu, astiro, astun, ganora, gerizpe, jaramon, neba, okaran, oratu, papar, ugazaba*..., eta, zalantzarik gabe, mendebaleko hiztunek ez ezik, beste edozein euskaldunek ere. Koldo Zuazo

Haietariko zenbait, bost mendeko **antzinatasunekoak**. Jon Muñoz

Dimisioaren berri izan zuenean, gobernuak arren eta arren eskatu zion berriro kontsidera zezala hartutako erabakia, eta, dimisioa alde batera lagata, onartuko zutela berriz ere lehengo baldintza berdinekin, **antzinatasuna** eta paga estrak ahaztu gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

Londresko British Museumek 4.000 urteko **antzinatasuna** duen eskultura bat erosi berri du 2,2 milioi eurotan. Berria - Kultura

32 urteko **antzinatasunarekin**, eta saldu duenarengatik jaso duen ehunekoa batuta, 856,32 euro kobratzen ditu. Berria - Harian

2 (izenondoekin)

Heraldikaren hizkeran, otsoak etsaienganako ankerkeria adierazten du; haritzak, **antzinatasun** gurgarria. Koro Navarro

Oso ezaguna ez izan arren, **antzinatasun** eta ospe handikoa dugu Tro Breiz izeneko erromesaldia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Oraino nazio berria bada ere **antzinatasun** handia ukanik, Euskaldunek naturatik hullan iraun dute, eta abantaila honi zor diote halako atrebentzia bat asmatzeetan eta eginkizunetan, bat-bateko poesigintzarako dohainean nabarmenki ageri dena. Berria - Kultura

Don Jose Larrea, inoiz aitari entzundako istorio gazi-gozoen protagonista, abizenaren **antzinatasun** iluna argitzen eta zerukoak ez diren aintzak bilatzen aritua. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ingalaterran, gauza berriek ere, zurezkoak eta adreilu gorrikoak direnean bereziki, denbora gutxi behar dute **antzinatasun** aire andeatu baina noblea izateko. Ramon Saizarbitoria

Harri horiz eraikia, **antzinatasun** kutsu harrigarria du Eta alboan dorre borobil batek ematen dio babesa. Txillardegi

Bai, gogorra izan zen: are gehiago kontuan harturik ez zuela bost hilabete horietako soldata berreskuratu, eta itzulitakoan gutxieneko langile-kategoria ezarri ziotela, **antzinatasun**-sari guztiak ezabatzeaz gain. Iban Zaldua

Laburtasun hori auziaren iraupenaren eta aurrena epaitua izateko **antzinatasun** eskubidearen arabera neurtu behar da. Juan Martin Elexpuru

Ingalaterran, gauza berriek ere, zurezkoak eta adreilu gorrikoak direnean bereziki, denbora gutxi behar dute **antzinatasun** aire andeatu baina noblea izateko. Ramon Saizarbitoria

Ez ote ziren haiek ere ingelesek zaharberritze lanerako duten maisutasunaren, edo gauza berriei **antzinatasun** itxura emateko artearen fruitu. Ramon Saizarbitoria

4 norbaitek enplegu edo kargu baten daraman denbora.

Hamar urte baino gehiagoko **antzinatasuna** daukaten langileek 55 egun kobratu ahalko dituzte lan egindako urte bakoitzeko. Berria - Ekonomia

32 urteko **antzinatasunarekin**, eta saldu duenarengatik jaso duen ehunekoa batuta, 856,32 euro kobratzen ditu. Berria - Harian

Beste gai batzuk negoziatzeko prest agertu zen Osakidetzaren zuzendaria, besteak beste, interinoen **antzinatasuna** aitortzea. Berria - Euskal Herria

Antzinatasuna aintzat hartuta, langile bakoitzak 60.000 eurotik gora jaso ahalko du. Berria - Ekonomia

Datorren urte hasieran, **antzinatasunaren** soldata plusa bost urteko epean jasotzetik hiru urteko epean jasotzera pasako dira, eta 12 lansaritan ordaindu ordez, 15 lansaritan ordainduko zaie. Berria - Euskal Herria

5 ***antzinatasun osagarri*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Hauei, erakundeko zuzendaritzak **antzinatasun osagarria** kendu nahi die, 1.800 euroko bi ordainketa osagarriren truke. ETC-prentsa

Harentzat, ez da feudala beharginei **antzinatasun osagarriak** kentzea eta lanaldiak luzatzea, antza: pernada eskubidea eskatzen ez den bitartean, dena ondo. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antzinatasunaren arabera** (3)

---

antzinate

1 *iz* antzinako denbora, eskuarki grekoen eta erromatarren garaia. ik **Antzinaro**.

-Emakume matematikari bakarra **antzinate** osoan, eta hara torturatu eta erre! Jon Muñoz

2 ***Antzinate Berant*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Antzinaro Berantiarra, Antzinaro Beranta, **Antzinate Beranta** edo Antzinate Berantiarra II. mendeko krisialdetik, Erdi Aroaren hasiera, VIII. mendera arteko iragapen aroa da. ETC-entziklopedia

3 ***Antzinate Berantiar***

antzinate berantiarra. Berria - Kultura

Izan ere, mende batzuk lehenago sortutako Kristautasuna izan zen europar pentsaera kanpotik baldintzatu zuen gertakari historiko eta kulturala, hasi **Antzinate Berantiarrean**, eta gero Erdi Aro osoan zehar. Askoren artean

4 ***Antzinate Klasiko***

Batzuetan aitzakia bezala hartuta, eta autoritate-froga bezala beste zenbaitetan, garrazki kritikatuz inoiz, Vitruvioren tesiak izan ziren hiru mende baino gehiagoz luzatu zen eztabaida baten ardatz nagusietako bat: arkitekto-profesioaren izaera liberala edo ez-liberala, arkitekturaren beraren funtsa, Izadiarekin zuen erlazioa, edota **Antzinate klasikoaren** maisutasunari arkitekturaren arau modernoen definizioan eman behar zitzaion egitekoa bezalako gai transzendenteak ziren, azkenean, eztabaidan zeudenak. Santiago Iruretagoiena

---

antzinatu, antzina(tu), antzinatzen da *ad* aurreratu.

Dardari batek inarrosi ninduen, haren hatz puntak galtzontziloaren marratik beheiti hainbat zentimetro **antzinatu** zirenean. Aingeru Epaltza

Itxaropen beilegia ezker, eskuin Esperantza pinttoa, arnas estuka hasperenka, herrizko harri hau untze bakar batez ere **antzinatu** ezinka etorkizunaren arrasto doi imaginarioan. Joxerra Garzia

---

antzinatxo *adlag* aspalditxo.

Itxuraz, berrogei urte **antzinatxo** egina zen; ile beltz sarria zuen, eta aurpegiaren erdialde guztia aurrerantz nabarmentzen zitzaion, sudurrarekin bat eginik. Jose Morales

---

antzinazale *izond* aurrerazalea.

Menard-en estilo **antzinazaleari** -hura arrotza izaki- afektazio apur bat atzematen zaio. Juan Garzia

---

antzineko ik **antzinako**; **aitzineko**.

antzineneko *izlag* antzina-antzinekoa.

Espainia hori bera pertsonaia bat bilakatu da loriaz jantzia -Nazio berria ezin da lehen Koroa baino gutxiago noble izan-, jada **antzineneko** prehistoriatik bere batasun eta aiurriarekin, esentziarekin. Joxe Azurmendi

---

antzinttoan ik **aitzinttoan**.

---

antzirudi *(orobat **antz-irudi**) iz* irudia, figura.

Jainkoak han egiten du lan bitartekorik gabe, irudirik gabe, **antzirudirik** gabe. Joan Mari Lekuona

Familia, berriz, gurari zentzukoi eta irudimenezkoen **antzirudi** da, gurariok norberagandik kanpora eramaten dutela. Joan Mari Lekuona

Nik diot, **antzirudiko** izateak eta batasunetik sortua izateak Jainkoagana jasotzen dutela arima, jaiogabeko Batasunean bat den Jainkoagana. Joan Mari Lekuona

Geure **antzirudira** egina baino gehiago, izan nahi genukeenaren moldera eratua. Karlos Linazasoro

Hamasei folioko hitzaldi bikain, zorrotz eta eruditoa, liburu berberaren **antzirudira**. Karlos Linazasoro

Berrogei urteko emakume horail puska zen, Morse andreak etorkizunean izan zezakeen **antz-irudira** taxuturikoa. Mirentxu Larrañaga

Italiako hainbat tokiren deskribapenak goraipatu zituen berariaz; hain ziruditen, baieztatu zuenez, argazkien **antz-irudikoak**. Mirentxu Larrañaga

---

antzirudikatu du *ad* irudikatu.

Fikzioak errealitatea **antzirudikatu**, imitatu egiten omen du. Joxerra Garzia

Eta errealitatea ez onartzeaz edo **antzirudikatzeaz** dihardugunez, Videla zaharraren adibidea ere ez da makala horretan. Hasier Etxeberria

---

antzo 1 *adlag* bezala.

Elea zerion, adiskide **antzo** mintzo. Aingeru Epaltza

Udak berotzen duenean nire kantua argi bilakatuko dut lurrera euri **antzo** iraulia musika urdinezko zaparrada bat bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Esamesetan zerbait zinezkorik ediren daitekeela, hitzezko estalki baten pean ezkutaturiko egia bat apika, igarkizun **antzo**. Juan Garzia

Itzal **antzo** barreiatu ziren. Juan Garzia

Emakumea artega dabil, baina funtsean artegatasun hori aspalditik gelditu zaion arrasto ezerosoa baizik ez da, eguzkiak utzitako orbana **antzo**. Javi Cillero

Izan ere, zerori, lagun, ene adineko zinateke, baldin karramarro **antzo** atzera egin ahal bazeneza. Juan Garzia

Aireplano bi itzulinguruka dabiltza urrunean, zapelatzak **antzo**. Mirentxu Larrañaga

Usoak **antzo**, Big Joe eta biok ere sor eta lor ginduzkan kanpai-hotsen ozentasun bortitzak. Mirentxu Larrañaga

Baionan bezala sartu gintunan bizitzan: elkarrekin eta bananduta, elkar ukitu ezin dezaketen bizikletaren gurpilak **antzo**. Javi Cillero

Etxea betetzen zuen izarniadura gartsu eta gorri batek nabarmendu zituen erliebean, zoko ilunen gainean, mandoen zelak, oiloen kaiola, txahal lokartua, trabuko gordeak, harkaitza, erreka, sabaitik zintzilik zeuden belar izpiak urrezko hariak **antzo**, ene lagunen begitarte zakarrak eta haur ikaratuaren begi izutuak. Koldo Izagirre

Hari begira geratu ginen, liluratuta, gure gainean jirabiraka zebilelarik, hegazti hori moldakaitz bat **antzo**, Whittaker andreak Cordeliak **antzo** jokatu zuen aitarekiko, gainbeherako urte ahul haietan. Mirentxu Larrañaga

Ohiko "egun on" diosal irribarretsua egin zion, eta begiradatxo hantuste maltzur eta adikorra erantsi, miresmen-zantzu lauso **antzo**. Mirentxu Larrañaga

Bertzeen oharkabean ihes egin nahi duelakoa jokatuz, burua apaldu eta urrats luzean zeharkatu nuen erredakzioa, ezker eta eskuin beldurtu **antzo** begiraka. Aingeru Epaltza

Hala erran dit, kezkatu **antzo**, afaldu ondoan: ez zekiat, ez zekiat, burua mugitu du ezker-eskuin. Xabier Montoia

2 (-en deklinabide atzizkiaren eskuinean)

Arranoaren **antzo** begiratzen du, astiro ibiltzen da, pauso beti-berdinez. Kamiseta eta galtzontziloak erantzi gabe oheratu zen, plazentan dagoen haurraren **antzo**, kuzkur-kuzkur. Jose Morales

Korapilo bat eta beste bat, izugarrizko abiadan zerabiltzan trikota egiteko orratzak, bere kasa lanean zihardutenen inurrien **antzo**. Hasier Etxeberria

Gehiegitxo hurbildu zen, bizkarrean ferekak jaso nahi dituen katuaren **antzo**. Lopez de Arana

Etsia itzuli den bidariaren **antzo**, hark bezala onartuko dut ezen zoriona utzi nuela esperantzaren bila joateko, eta d'Harcourt-ek bezala erranen dut: [...]. Jon Muñoz

Ondoan John zeukan, ohe handi batean lo, ume baten **antzo** lasai-lasai arnastuz, buru azpian buruko tolestu bat zuelarik. Lopez de Arana

Etxetik alde egindako mukizu baten **antzo**, emakumea segundoak zenbatzen ari da trenzuloa noiz amaituko, harik eta argi ukaldi batek hiria ilunpetatik berreskuratzen dion arte. Javi Cillero

Herriak, krediturik gabeko zordun baten **antzo**, ez zuen mailegu-emailerik aurkitzen, etekin handien truke ez bazen. Iñaki Iñurrieta

Ardi galduaren **antzo** desbideratu nintzen. Imanol Unzurrunzaga

Malko erretan gainez egindako amorruak bultzata, arma patioko harrietan marinel hordituen **antzo** zabuka aireratu ahal izan dugu, asmoa gure esku, Vladimir. Koldo Izagirre

Mutilaren kuraia burbuila baten **antzo** ezabatu zen eta burua makurtu zuen, lur jota. Xabier Mendiguren Elizegi

Eguna, argi parrastada zuri baten **antzo**, gora zetorren Rambuteau kalearen amaieratik. Karlos Zabala

Museozaina hizketan hasi zitzaidan, borborka, lehertu den iturri baten **antzo**, eta gai batetik bestera jauzi eginez logika handirik gabe. Anjel Lertxundi

Hauts nekatuaren **antzo**, ispiluen gainean lo egin izan dut eta beirateetan ere bai; gauza guztiek hartzen dute zerbait nigandik, ezeinek ez dit ezer ematen, argalduz noa ia itzal baten tankera hartzeraino. Jon Muñoz

Poetak, Danteren eta Vicoren **antzo**, bidaia alegoriko bat marrazten du, non gizadia eta euskaldunak prehistoria denboretatik gaurko egoera urbanoetara garatu diren. Joseba Zulaika

Pizkundearekin jarraitzen du hogeigarren poemak ere, "Ditxaren bitartez", zeinek Miren eta Joaneren historiaren bukaera dakarren, "ezkontza berri" batean, Dante Beatrizekin paradisura itzuli zenekoaren **antzo**: [...]. Joseba Zulaika

3 ***antzora*** *ipar* antzera.

Garabiak ikusi nituen, burdinazko hegazti gaitzen **antzora** airez aire mugitzen. Matías Múgica

Halako batean, zerbait irabazi-ustean galtzen ari zarelako sentimenduak harrapatzen dizu pixkanaka burua, lurrun kirastu baten **antzora**. Iñaki Segurola

Hala bada, gure Andreas eseri zen, eta gizon berritua izateko kontzientziarekin garai batean edukitzen zuen boz segurua atera zitzaion eskatzeko, orain adiskide zahar maite baten **antzora** itzulia: "café, arrosé rhum". Matías Mujika

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baten antzo** (13); **nahi antzo** (3)

---

antzoki *(ETCn **34.594** agerraldi)* **1** *iz* teatro lanak jokatzeko prestaturiko eraikuntza edo aretoa. ik **teatro 5**.

Garbitzaileen grebak ondorio latzak eragin ditu jada: herriko kultur etxe, **antzoki** eta kiroldegiak itxita daude, eta laster beste eraikin batzuk itxi beharko ditugu, ezinbestean. Berria - Ekonomia

Garbitzaileen grebak ondorio latzak eragin ditu jada: herriko kultur etxe, **antzoki** eta kiroldegiak itxita daude, eta laster beste eraikin batzuk itxi beharko ditugu, ezinbestean. Berria - Ekonomia

Gero **antzoki** batean sartu zituen, particina-kantari gisa, eta kazetariekin eta antzezleekin harremanetan jarri zituen. Josu Zabaleta

Antzoki batera eraman zuten, agertoki batera igoarazi, eta aitak hitzokin hasi zuen bere mitina: "Zientzia egiaren bilaketa-lana da". Fernando Rey

Egunero **antzoki** bihurtzen zuen Marielexako elizalde guztia! Pako Aristi

Etxetik herriren bateko plaza, pilotaleku, **antzoki** edo toki publikoren batera ateratzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Meategiko sala batean egun seinalatuetan orkestra batek Mozarten musika jotzen baitzuen, edozein **antzoki** eta entzutegi baino garbiago jo ere, gatzezko paretek doinuaren zikinkeria guztiak garbitu eta doinua bera araztu egiten baitzuten, soinu huts bihurturik. Felipe Juaristi

Gaur existitzen ez den Donostiako **antzoki** batean izan genuen emanaldia, etxekoentzat eta ikastetxeko lagunentzat eskainia. Joan Mari Irigoien

Kilpatrick **antzoki** batean akabatu zuten, baina orobat **antzoki** izan zen hiri osoa ere, eta antzezleak erruz izan ziren, eta heriotza horrek koroatu zuen dramak egun asko eta gau asko hartu zituen. Juan Garzia

Tira, dotore-dotore jantzi zaitez eta goazen **antzoki** batera. Lopez de Arana

Bilera eta irakurketa gelak, liburutegia, kiroldegia, anbulatorioa eta **antzokia** ipini nahi ditu. Koldo Biguri

Donostia gogorarazten zidala esan nion: gune erromantikoa, Igeldoko harri hareatsuez eraikitako etxeen horaila ilunabarrean, Victoria Eugenia **Antzokia**, Kursaal zubiko farolen urre dirdira ibai azalean. Ramon Saizarbitoria

Biltmore **antzokia** hementxe daukazu, Broadwayen. Bernardo Atxaga

Antzokian sartu nintzen une batez; zein antzokitan? ez dakit. Josu Zabaleta

Gau batean, Apolo **antzokiaren** aurretik igarotzean, Montanerrekin egin zuen topo. Josu Zabaleta

Beste euskal haur goiztiar batek, Jesus Guridik, emanaldi bat eskaintzen du Bellas Artes **Antzokian**. Askoren artean

Ez dut kexatzeko arrazoirik, maiatzera arte lanez lepo ibiliko naiz, Bartzelonako Lliure eta Liceu **antzokiekin** beste obra bat egingo dudalako. Berria - Kultura

Londresen estreinatu zen, Yorkeko Dukeen **Antzokian**, arrakasta izugarriarekin. Julen Gabiria

1922an, Londres eta New Yorken eman zen; 1923an, Pariseko Comédie des Champs-Elysées **antzokian**; 1924an, Vienan, eta hala segidan. Josu Zabaleta

Italiako Regioemilia, Piacenza eta Ferrara **antzokiek** eginiko *Les pecheurs de perles* opera arrakastatsuaren ekoizpenaren lau saio eskainiko ditu OLBEk Euskalduna jauregian, maiatzaren 1, 4, 7 eta 10ean. Berria - Kultura

Baziren Savoy kafetegian jotzera ohituta zeudenak eta baziren Lucerna **antzokian** jotzen zutenak, Elena König kantariaren erreinuan, emakume mehe eta ahots-beroa bera, kantatzean hitzak erretzen zituena bera. Felipe Juaristi

Aldameneko paretan erregea protagonista zuten hainbat argazki zeuden: **Antzokiaren** inaugurazioa, belaontzi-estropada bateko garaikurra jasotzen, hileta-ospakizunak herriko elizan... Josu Landa

Antzokiaren barrutia zenbat eta itxiagoa izan, barruko gauza guztiek hainbat xarmatsuago barre egiten dute, egunaren argia bildurik. Xabier Amuriza

Euskal **antzokien** Sareak Araba egitasmoan sartzea eta dantza sustatzea ditu helburu aurtengo urteari begira. Berria - Kultura

Antzokietako emanaldiak hasi baino ordubete lehenago, ardo balienteen zaleak Esterhazy printzearen jauregiko kupeldegietan biltzen ziren isilpean. Xabier Olarra

Leihoan bi pare gortina: batzuk argia iragaiten uzten dutenak eta besteak lodiagoak, **antzokietako** oihalez eginak diruditenak. Hasier Etxeberria

Berrikitan sinatu den hitzarmenaren kontra altxatzen dira **antzokietan** sartuz trabatuz emaiten diren antzerkiak halanola Pauen eta bertze hiritan, bereziki festibaletan. Herria

Debekatua dute **antzokietan**, zinema aretoetan, eta beste aisia leku publikoetan sartzea. Josu Zabaleta

Ostalaritzako establezimenduetan eta aisialdiko tokietan, hala nola jatetxeetan, tabernetan, zinemetan eta **antzokietan**, erretzeko tokiak egokitzea zehazten du. Berria - Euskal Herria

Eta auskalo zenbat jenderi entzun diodan firin-faran ikusi dutela **antzokietan**, gau-klubetan eta enparauetan. Mirentxu Larrañaga

Dantza tradizionalen bidez, antzerkia eta musika euskarri dituela, 36ko gerran erbesteratutako euskal umeen bizipenak ekarri ditu **antzokietara** Kukai dantza taldeak. Berria - Kultura

Larunbata zen, eta jende asko zegoen; mahaiak beteta zeuden; gautxoriak, **antzokietatik** itzuleran, afaltzeko prestatzen ari ziren. Josu Zabaleta

Orain gizon apain jantziak eta eskote handiko emakumeak irtengo dituk **antzokietatik**; gizonak etxera joango dituk euren andreekin edo amoranteekin; hiria lotara zoak. Lopez de Arana

Utziko al didazu zurekin **antzokira** joaten? -esan zuen hortzak estutuz. Lopez de Arana

Adiskide zituen probintziako buruzagi batzuek ere abisua bidali zioten **antzokira** ez agertzeko. Elizen arteko biblia

Hamlet eta La Tempestad emanaldiak dira Arriaga **Antzokirako** zuzenduko dituen lehenak. Berria - Kultura

Nola ere den, iritsi da zalgurdia hirira eta **antzokirantz** hartu du bulebarrean aurrera. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Txotxongiloak, Boom ikuskizunarekin hor ditugu **antzoki** munizipalean ostiral honetan. Herria

Bizkaiko hiriburuko **antzoki** publikoak ondorengo hiru urteetan eskainiko dituen obrak aukeratuko ditu. Berria - Kultura

Joan den ostiralean **Antzoki** Juduan egin genuen ikasturtearen amaiera ospakizuna oso ongi atera zen. Josu Zabaleta

1880 eta 1889 bitartean, Sarriegi omen zen, oroz gain, hogeita bost bat ahotseko orfeoi txiki batekin, Donostiako Lore Jokoetan Udaletxeak **Antzoki** Zaharrean eskaintzen zituen funtzio eta emanaldietan jarduten zuen musikaria. Askoren artean

Haiexek daude orain modan, eta hain uhukatu eta gaitzetsiak, aldiz, **antzoki** arruntak -hala deitzen diete-, ezen hainbat ezpatadun bapo, antzar-lumen beldur, doi-doi ausartzen baita bertaratzera. Juan Garzia

-Eta behingoz hau hiriko **antzoki** nagusian eskaintzen dela. Itxaro Borda

Gero, han hemenka ibili ondoan, denda ederren hegiz hegi, **Antzoki** Handiaren parean arribatu ginen, eskuin hartuz, ibaiari buruz. Piarres Aintziart

Munduko zelai zabala ere burrunbatzen dute, inoiz **antzoki** handietan zabalduriko errezela masta eta zutabe artean kirrizkatzen den bezala, eta inoiz, aura lotsagabeek urraturik, sumintzen dira eta paper kizkurtuaren hotsa ateratzen dute. Xabier Amuriza

Antzoki txikietan aritzen zirenak ezagutzen zituen, eguneko pertsonaia ospetsuei hika egiten zien, bazekien bezperan jokaturiko antzezlanak porrota edo arrakasta izan zuen. Karlos Zabala

Habanako talde gehienekin jo izan du, nola esperimentalekin, hala kontsagratuekin, Karl Marx **antzoki** erraldoian bezala, hotelik xumeenaren kafetegian. Pako Aristi

Antzoki modernoetan bezala, oihala jaitsi behar izan gabe aldatu zuten dekoratua. Jon Muñoz

Ortzegun aratsean, Dukonteneko **antzoki** idekian (euria balitz jai-alai ezker paretan) Benito Lerxundi Kantari, sartzea urririk. Herria

Zurda zurruneko eskuila eta baldea lurrean utzi eta soka bati tiraka altxatu zuen zaldi-karrusela estaltzen zuen loneta, **antzoki** biribil bateko erridaua bailitzan. Harkaitz Cano

Hori sei hilabete lehenago gertatu zen, nire herriko **Antzoki** Txikian *Haiek bazekiten zer nahi zuten* izeneko obran Joeren papera egiten nuenean. Fernando Rey

Plaza bi haietan eginiko emanaldiak erabat arrakastatsuak gertatu ziren, eta Europako **antzoki** ospetsuen ateak zabaldu zizkioten; Parisko Operan, Londresko Covent Garden eta Milango Scala antzokietan aritu zen, besteak beste. Berria - Kultura

Hiribarnea zeharkatu ondoren, Neapolisko parke arkeologikorantz zihoala, greziar **antzokiaren** aurretik igaro zen 404a. Jon Muñoz

Hiribarnea zeharkatu ondoren, Neapolisko parke arkeologikorantz zihoala, greziar antzokiaren aurretik igaro zen 404a; hura zen, Alberten esanetan, antzinate osoko **antzokirik** handiena; muinoan bertan zulatua zegoen, eta 15.000 ikusle hartzen zituen, berrogeita hamar bat harmaileta eseriak! Jon Muñoz

Ordutik munduko **antzokirik** garrantzitsuenetan izan da, Vienako Staatsoperen eta New Yorkeko Meten, besteak beste. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Moraltasuna poliziaren esku eta arte ederrak **antzoki**-enpresarioen esku uzten dituen klase ertain kamuts baten kritiken mende jartzeko? Irene Aldasoro

Gillotina altxatua izan zen **antzoki** plazan, portutik hurbil. Elena Touyarou

Bulegoak bisitatu gabe utzi zituzten, baina Pepponek ezin izan zion eutsi bere urguilua zen **antzoki**-aretoa gotzainari erakusteko tentazioari. Koldo Biguri

Antzezleak **antzoki** aretora bihurtuko dira, eta hango atetik Konpainiaburua ikusiko da sartzen. Josu Zabaleta

Bulegoak bisitatu gabe utzi zituzten, baina Pepponek ezin izan zion eutsi bere urguilua zen **antzoki**-aretoa gotzainari erakusteko tentazioari. Koldo Biguri

Eta espres egina balitz bezala, ohearen erresorten kurrinkak **antzoki**-gertaldia osatzen du. Piarres Aintziart

Bazkidea, **antzoki**-zinema, auzo jendetsua... baimen guztiak jasota... 3.000 dolar.. "Nik ez ditiat hiru mila dolar...". Lopez de Arana

Antzoki osteko parkean Hermanni eta juduei buruz izandako solasaz gogoratu nintzen. Anjel Lertxundi

Ondoren, laurok altxatu ginen mahaitik, eta **antzoki** ondoan utzita zuten autora lagundu genien gero. Ramon Saizarbitoria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez aparkatu Kafe **Antzoki** aurre-aurrean, bestela mundu guztiak ikusiko gaitu. Sonia Gonzalez

Aintzineko urteetan bezala, kafe **antzoki** gisa apaindua izanen da Aiherrako Denen Etxea, erran nahi baita entzuleek mahain batzuen inguruan jarririk entzunen dutela ikusgarria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bat egiten dugu beste kafe **antzokien** filosofiarekin gauza askotan, baina bakoitza dagoen lekuan dago. Berria - Kultura

Zinema-**antzoki** berria irekiko dute gaur iluntzeko 19:30ean Zallan. Berria - Kultura

Almagro bisitatu genuen, noski, hango plaza eta komedia-**antzoki** zaharrarekin, baina bisitariez gainezka zegoen. Iban Zaldua

Ekoizpena: Erromako, Nizako eta Sevillako opera **antzokiena**. Berria - Kultura

Caruso bera kantatua zen opera-**antzoki** hartan; Alsaziatik ekarritako teila bernizatuak; Carraratik inportatutako marmolak; Frantziako marketeria; Ingalaterrako burdina forjatuko eskulanak; Italiako sabai-lanparak; eta plaza apaintzen zuten mosaiko-uhinak, operaren sarrerako marmolezko zutabediaren oinetaraino. Jon Muñoz

Ez du ezer galdegin, eta ibilian jarraitu dute, harik eta lehen Etxezarreta eta orain Herri **Antzokia** den eraikinaren aurrean geratu diren arte. Patxi Zubizarreta

Beste alde batetik Bepen ezkontitza, Mendekoste jaia, loreak, Kuglerren urtebetetzea, tartak eta errebista-**antzokien**, zinemen eta kontzertu aretoen historiak. Josu Zabaleta

5 irud/hed

Ikus beza zure Zuhurtasun Argiak, zu Jaun txit Argia, jasateko ditudan guztiak lotsatu gabe pairatzekotan zenbat naizen Jainko laguntzaren beharretan, kontutan hartuko baituzu, mundu guztiaren **antzoki** bilakatu den hiri handi honetan nagoela, arrotz eta zahartua. Piarres Xarriton

6 ***antzoki liriko*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Gero eta murritzagoak ziren laguntzek **antzoki lirikoak** publikoaren diru bilketetatik bizitzera behartu zituzten. ETC-literatura, saiakera

Bere ibilbide profesionala ikusita, ordea, ez da hain harritzekoa, kontuan hartzen badugu Madrilgo **antzoki liriko** biak zuzendu dituela, lirika zuzendaria izateaz gain. ETC-prentsa

Handik aurrera opera ekoizpenetan murgildu zen batez ere, eta Europako eta AEBetako **antzoki lirikoetan** gehien itxarondako izenetako bat izan da harena. ETC-prentsa

Venezian **antzoki lirikoak** zabaldu zirenean, Monteverdik berriz ere dramak idazteari ekin zion. ETC-entziklopedia

Handik aurrera, **antzoki liriko** nagusietan aritu zen kantari, hala nola Vienako Operan, New Yorkeko Metropolitanen eta Salzburgoko Jaialdian. ETC-entziklopedia

7 ***opera antzoki***

Sutea izan da Bonngo **Opera Antzokian**. Berria - Kultura

Zaha Hadid Pritzker arkitektura sariaren azken irabazleak Cantoneko **opera antzokia** aurkeztuko du. Berria - Kultura

Caruso bera kantatua zen **opera-antzoki** hartan; Alsaziatik ekarritako teila bernizatuak; Carraratik inportatutako marmolak; Frantziako marketeria... Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzoki bat (3); **antzoki batean** (14); **antzoki baten** (5); **antzoki berria** (4); **antzoki berrian** (3); **antzoki edo** (3); **antzoki gisa apaindua** (6); **antzoki idekian** (3); **antzoki munizipalean** (3); **antzoki txiki** (4); **antzoki txikia** (3); **antzoki txikian** (4); **antzoki zaharra** (5); **antzoki zaharraren** (3); **antzoki zaharrean egingo** (3); **antzoki zaharreko** (6); **baionako antzoki nagusian** (3); **da antzoki** (4); **dira antzoki** (4); **donostiako antzoki zaharrean** (31); **du antzoki** (3); **dukonteneko antzoki** (3); **genevako antzoki** (3); **guztiak antzoki zaharrean** (3); **kafe antzoki gisa** (9); **nire herriko antzoki** (3); **zen antzoki** (3)

antzokia bete egin (3); **antzokia gaur** (3); **antzokia kudeatzen duen** (3); **atharriko kafe antzokia** (5); **baionako antzokia** (7); **barakaldo antzokia** (17); **basauriko social antzokia** (5); **bilboko arriaga antzokia** (31); **bilboko kafe antzokia** (25); **iruñeko gaiarre antzokia** (3); **leidor antzokia** (3); **principal antzokia** (4); **victoria eugenia antzokia** (6)

antzokiak ekoitzitako (6); **bilboko arriaga antzokiak** (3); **bruselako monnaie antzokiak** (3); **iruñeko gaiarre antzokiak** (5); **kafe antzokiak** (5); **principal antzokiak** (4)

antzokian ariko da (12); **antzokian ariko dira** (5); **antzokian aurkeztu** (3); **antzokian aurkeztuko du** (3); **antzokian egindako** (7); **antzokian egingo den** (3); **antzokian egingo dute** (4); **antzokian emango** (4); **antzokian erredakzioa** (4); **antzokian eskainiko** (6); **antzokian estreinatu** (6); **antzokian izan** (4); **antzokian izango da** (9); **antzokian izango dira** (6); **antzokian jokatuko da** (4); **antzokian jokatuko den** (3); **antzokian joko du** (5); **antzokian sartu** (3); **antzokian taularatuko** (4); **arrasateko amaia antzokian** (3); **arriaga antzokian ariko** (7); **arriaga antzokian ikusi** (3); **azkoitiko baztartxo antzokian** (3); **baionako antzokian** (18); **barakaldo antzokian** (24); **basauriko social antzokian** (5); **bilboko arriaga antzokian** (40); **bilboko kafe antzokian** (71); **bolxoi antzokian** (3); **da arriaga antzokian** (3); **da gaiarre antzokian** (4); **dukonteneko antzokian** (3); **durangoko kafe antzokian** (4); **dute kafe antzokian** (3); **espaloia kafe antzokian** (4); **gasteizko principal antzokian** (31); **getxo antzokian** (6); **haritz barneko antzokian** (3); **herri antzokian** (4); **herriko antzokian** (3); **hiriko antzokian** (5); **iruñeko gaiarre antzokian** (12); **kafe antzokian ariko** (8); **kafe antzokian aurkeztuko** (4); **kafe antzokian egingo** (6); **kafe antzokian izango** (6); **kafe antzokian joko** (6); **leidor antzokian** (5); **lizeo antzokian** (4); **ondarroako kafe antzokian** (4); **plateruena kafe antzokian** (13); **principal antzokian jokatuko** (5); **real antzokian** (3); **santa ana antzokian** (3); **sozial antzokian** (3); **vauban antzokian** (3)

antzokiaren aurrean (3); **arriaga antzokiaren** (5); **kafe antzokiaren** (5)

euskal antzokien (4)

antzokiko arduradunek (3); **antzokiko foier aretoan** (3); **antzokiko orkestra** (3); **antzokiko zuzendari artistiko** (3); **antzokiko zuzendariak** (3); **arriaga antzokiko foier** (3); **arriaga antzokiko zuzendari** (5); **bilboko arriaga antzokiko** (7); **gaiarre antzokiko** (5); **kafe antzokiko** (7); **mira antzokiko** (3); **victoria eugenia antzokiko** (3)

antzokira eraman (3); **antzokira joan** (3); **antzokira joateko** (4); **antzokira joaten** (3); **bilboko arriaga antzokira** (3); **kafe antzokira** (6)

hainbat antzokitan (4)

antzokitik irten (4)

---

antzokiratu, antzokira(tu), antzokiratzen du *ad* antzokira eraman.

Eta ondorengoetan, besteak beste, Fernando Lazaro Carreterren La ciudad no es para mi eta Federico Garcia Lorcaren Yerma lanak ere **antzokiratu** zituzten euskaraz. Berria - Kultura

---

antzora ik **antzo 3**.

---

antzu **1** *izond* fruiturik, umerik edo dagokionik ematen ez duena. ik**agor 1**.

Beste herrialde batzuetan, emakume **antzu** edo haurdun gelditzen ez zena hurritz-zarbattoekin jotzen zuten, emankor egin zedin. Pello Zabala

"Azkue ginekologoak lortu du estreinakoz haurrak laborategian egiteko metodo ziurra" ekarri zuten titularretan egunkari guztiek nire argazkiaren ondoan, "Azkue doktoreak gauzatu du bikote **antzu** askoren itxaropena". Hasier Etxeberria

Antzu ez zenez, nahi bezala lortu zuen, eta trebe bihurtu zen, dirudienez, haurdunaldian zer modutan estutzen zituen, munstro haiek izango zuten itxura nahierara erabakitzeko. Josu Zabaleta

Agor egingo zaituzte Jaunak, bai zeuek, bai zuen lur eta abereak, eta **antzu** zuen behi eta ardiak. Elizen arteko biblia

Egiptoarrek, beren hildakoak baltsamatuz eta animalien eta landareen biziaren arteko oreka naturala horrela hautsiz, beren garai bateko lurralde emankor eta jendetsua **antzu** bihurtu zuten, eta jende-multzo handia mantentzeko ezgauza. Xabier Olarra

Giza generoaren ugalkortasunak -txikia berez, baina handiegia natura **antzu** eta jareinaren baliabideez gero eta handiagoak ziren beharrizanak ase ahal izateko- batu zituen lehen basatiak. Juan Martin Elexpuru

Han ikusten dugu hark baserri inguruan hainbeste estimazio ez duen zuhaitzen artean kokatzen digula, fruituondoak preziatuagoak zirelako orduan, eta altzak ez omen fruiturik, eta horregatik emakume **antzu** eta familigabekoen parekotzat, halere mozkorra baino nahiago, ipini zigun altza Axular abadeak. Pello Zabala

Hala, bada, zikloko 28 egunetan emakumea **antzu** da, eta ezin da haurdun gertatu. Luis Elberdin

Ez al diote ba esan zure senarrari **antzua** dela? Fernando Morillo

Denbora luzea pasatu nuen **antzua** nintzela jakin gabe, handik urte askotara jakin nuen, eta, beraz, nik ere beldurra nuen haurdun gelditzeko. Karlos Zabala

Bikote **antzuen** arazoa konpontzeko, kimikaren bide kiribiltsuagoak erabiltzen urteak zeramatzaten Pariseko Pasteur Institutuan eta New Yorkeko Sloan Kettering ospitalean, besteak beste. Hasier Etxeberria

Lausengua ahaztu gabe, honek banitatea puzten du eta fruitu-ale baten trukean mila ematen ditu, lurra **antzua** eta ereilea dorpea izanik ere. Jon Alonso

Ez ezkontza hura **antzua** zelako; Taibelek seme bat eta bi alaba eman zizkion senarrari, baina txikitan hil ziren hirurak. Koro Navarro

Sinesten dute mihuraz egindako edabe bati esker animalia **antzuek** umeak egingo dituztela. Xabier Kintana

Asteartean Oosthuizen doktore albaitaria etorri arte itxarotea dauka, baina gaixo hau antzu geratuko da edonola ere, eta nahi izango ote du emakume honek aker **antzurik**? Oskar Arana

2 irud/hed

Ez nintzen bertso galduaren gomutaz negar egiten zuen poeta **antzua**. Ramon Saizarbitoria

Jakintsua, izan ere, zoriontsu bizitzen dakiena da, ez eruditu **antzua**, eta jakinduria teknika baten ondorio den izaera bati dago lotua. Markos Zapiain

Zain gelditu harik eta begiak lausotu eta eremu zuri, **antzua**, sekula gehiago ikusiko ez duen arte. Legeak, ez zirela aitzakia hutsalak baino, eta emakume batengana hurbiltzeko nire gaitasunik eza zigor-epai apelaezina zela, zeinak, heriotzaraino bizilagun, ondamuz eta desira abstraktuz pozoituriko bizitza **antzu** eta xedegabe batera hertsatuko baininduen. Jon Alonso

Zerbitzu publikoek baditutze beti beren mugak eta ez dugu ibili beharrik teleikusleen merkatu **antzu** horretan nor baino nor gehiago, nahi eta ezin, iragarki eta lehiaketa arruntez bete nahian programazioa. Pello Salaburu

Txarak eta sasiak, horra lur idor-**antzu** honek ematen duen guztia. Xabier Montoia

Emaitza onen ehizan beti, baina defentsa kaskarrarekin sendoarekin beharrean, eta eraso **antzuarekin** emankorra beharrean. Berria - Kirola

Galdetzen diot, halaber, lehia hori emankorra izan ote den, ala, jarrera absurdoen aurkako gehienak bezala, **antzua**. Bernardo Atxaga

Honela pasatu ziren udako hilabeteak, lan bilaketa **antzu** samarrean, batetik, eta harreman hasi berriaren esne-bitsetan, bestetik, asteroko zure gutunaren hornimenduarekin, noski. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zen gauza gomendagarria batere egun **antzu** horietan sortzea, zoritxarra zekarkeelako. Pello Salaburu

Bidea mendi-mendian sartzen zen, trokarte sakonen ertzetik eta gailur **antzu**, zorrotz, basatien azpitik. Josu Zabaleta

Edertasun hura, paraje **antzu** eta etsai hartatik ikusteak areagotuta, bihotzeraino iritsi zitzaion, esperantza berriro sortuz. Agustin Otsoa

Ausartuko naiz esaten honetan zerikusi handia duela gobernuaren izaerak, heziketa zorion publikoaren alor **antzua** izan ez dadin eta jakintsu gutxi batzuek han eta hemen bakarrik jorra ez dezaten mendeen bukaerara arte. argi eta garbi adierazi nahi dugu gaur arratsaldeko bilera guztiz **antzua** izan dela. Juan Martin Elexpuru

Gabriel gazteak ez du, ordea, bere burua engainatu nahi itxaropen **antzuaren** lilurapean. Felipe Juaristi

Erasmo "eskolastikaren xehetasun lehor eta **antzuen**" bidetik apartatu zen; Axularrek ez du urrats bakar bat ere emango eskolastikaren ortodoxiatik kanpo. Anjel Lertxundi

Elkarrizketa soziala **antzua** izan da eta ez du eraginik izan. Berria - Ekonomia

Jauna, esan diot Gwaini utz dezagula borroka **antzu** hau, ez baitut inola ere hil nahi. Juan Kruz Igerabide

Xiudadeko hiritarra gauza askori begira bizi da, entretenitua oso (begiak haruntz eta honuntz, turisten gisa, baina "bertako" turista gisa!); ustezko ugaritasun **antzu** batek txoratua darama bizia. Iñaki Segurola

Ez dut sekulan erudiziorik aski bilduko, matiz **antzuetan** galtzeko. Patziku Perurena

Jaurlaritza: "ETAren mehatxua **antzua** bezain alferrikakoa da". Berria - Euskal Herria

Fikzio ariketa **antzua**. Berria - Kirola

Gazte horiek orain arte egin dituzten hainbat urrats **antzuen** ondotik, "agur" horrek ba zuen segundu batez kausitzen den zorion gaindikorraren gustua. Herria

Egungo fronte **antzuen** gainetik, bazterketarik gabeko elkarrizketa politikoa nagusitu beharra da. Berria - Euskal Herria

Inora ez daramaten jarrera **antzuetatik** ihes egitera bultzatu gaitu. Berria - Kultura

Grina **antzu** honek, bizpahiru mila urtez eduki du gizona bere sorburuaz eta etorkizunaz buruhausten. Patziku Perurena

Ez dut sekula santan denborarik alferrik galdu literatur kritikoen (hondatzaileen?) terminologia **antzu**, berbaro zuri eta nahitanahiez guzia sailkatu behar larriaren sasi zikinean. Patziku Perurena

San Frantziskoren merituengatik, mahatsik gabe utzitako mahastiak ardo ugari eman zuen bezala, hala, bekatuengatik bertutetan **antzu** zen kristau herriak ere, San Frantziskoren meritu eta irakatsiengatik, penitentzi fruitu onak ematen zituela sarritan. Asko dira jakintza lortzen saiatzen direnak; zorionekoa, ordea, Jainko Jaunaren maitasunagatik bere burua **antzu** egiten duena. Askoren artean

Bai, izan bedi **antzu** gau hura, ez beza entzun poz-oihurik! Elizen arteko biblia

Nik bere amorrua ulertu beharrean, **antzu** eta agor izatearen amorrua alegia, algara batekin erantzun nion. Joxean Agirre

Horrela pertsonaien eta antzezleen ahalegin **antzua** eteten eta barreiatzen du, poetak lagundu gabe, itxura denez. Josu Zabaleta

Bitxikeriatzat jo ditzakegun idazmolde hauek -ahalegin itzel baten truke ondorioen aldetik **antzu** geratzen bide direnak. Iñaki Arranz

Dirudienez baketsua izan zen harreman hura, halaz guztiz, **antzua** ere izan zela ematen du, eta are atzerago begiratu behar dugu bila gabiltzana aurkitzeko. Iñaki Mendiguren

Basamortua mundua da, garai hartan landugabea eta **antzua** bertuteen doktrinari dagokionez. Askoren artean

Kolore lausoa, **antzua**, azkeneko ur hondarrarena bezalakoa. Joseba Sarrionandia

Lehen aipatutako ordenatzeko asmoa duten azpimultzoek ez dute gehiegi laguntzen eta ibilbidea zehazten baino gehiago erretorika **antzura** mugatzen da. Berria - Kultura

Nikolas Zendoia herri-giroko (eta beraz, uste **antzurik** gabeko) idazle dotoreak esplikatuko digu zer den. Iñaki Segurola

3 (izenondo eta adizlagun baten eskuinean)

Antropologiako ikasketei unibertsitateko diskurtso akademiko **antzua** kenduko nieke. Ana Urkiza

Arrazoimenaren erabilera espekulatibo soilaren saialdi oro, beraz, Teologiari dagokionez osorik **antzua** dela eta bere barneko antolaerari dagokionez ere ezer ez eta hutsala dela baieztatzen dut. Ibon Uribarri

Gainera, horretarako zeharo **antzua** eta mugatua izan da alegazioen bidea eta azken urteetan egin ditugun ekimen, topaketa eta mobilizazio jendetsuak", salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Argi eta garbi adierazi nahi dugu gaur arratsaldeko bilera guztiz **antzua** izan dela. Berria - Euskal Herria

Eztabaida hori nahiko **antzua** da. Berria - Harian

Introbertsiora daraman, eta errealitate enpirikoarekiko harreman arrazional eta nahimenezko guztiak desegiten dituen autismo baten eraginpean erortzen da, etikoki eta intelektualki **antzua** den kontenplazio batera kondenatzen du artista. Josu Zabaleta

Mendebaldeko Gizarte modernoaren barne-proletalgoa, hala ere, nabarmenki **antzua** agertu zen "erlijio nagusi" berriak sortzeko. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzu aritu (3); **antzu bat** (6); **antzu jardun zuten** (3); **baina antzu** (4); **emakume antzu** (3); **eztabaida antzu** (3)

ahalegin antzua (4); **antzua da** (15); **antzua den** (3); **antzua izan da** (4); **antzua izan zen** (7); **baina antzua** (4); **bidea antzua dela** (3); **eztabaida antzua** (7); **saiakera antzua** (3)

ahalegin guztiak antzuak (4); **ahaleginak antzuak izan** (3); **antzuak alde batera** (3); **antzuak direla** (3); **antzuak izan dira** (6); **antzuak izan ziren** (14); **antzuak izango** (3); **bide antzuak** (3); **eztabaida antzuak** (4); **guztiak antzuak izan** (6); **saiakera guztiak antzuak** (3)

eztabaida antzuetan (4)

---

antzukeria *iz* antzutasun gaitzesgarria.

Hura ikusi, eta berehala jakin nuen poemak idazteari ekingo niola berriro, are bulartsuago, hilabete batzuk **antzukerian** igaro eta gero. Juan Kruz Igerabide

Bitartean, ETAk betikoa dio, eta bere borrokaren **antzukeriaz** preso batzuen gutun bat agertzen da. Berria - Euskal Herria

---

antzuolar *izond/izlag/iz* Antzuolakoa, Antzuolari dagokiona; Antzuolako biztanlea.

Ondotik sahetseko ezker paretean, esku huska lehiatu ziren aihertar eta **antzuolar** adixkideak, hortan bururatu zelarik egun xoragarria. Herria

Antzuolar artista batek egin lekuko edo obra hunen barnean, mezu bat ezarriko dute Aihertarrek. Herria

Antzuolar mendizaleak. Herria

Antzuolar 23 lagunek ere parte hartu dute bazkarian. Herria

Biharamunean, igandea, **Antzuolar** eta Aihertar 50 bat lagunek parte hartu dute Lekuindarrek antolatu "mukobisidosa"-ren aurkako ibilaldi jarraikian. Herria

Gorka Garcia **antzuolarra** aspaldiko partez Osasunaren hasierako hamaikako batean izango da gaur. Berria - Kirola

Berraondo **Antzuolarra** ez da nor nahi, bainan Xalak bere nausitasuna erakutsi du. Herria

Antzuolako Herriko etxetik, bertsu batzu Andre Martinon Aihertarrak eta Kaixeta **Antzuolarrak** kantatu ondoan, Nelly Challet aihertarrak hoinbertze lasterkarik eskutik eskura lekukoaren barnean Aiherratik Antzuolarako bidean eramandako mezua, irakurtu du. Herria

Bertatik bertara entzunda dakit **antzuolarrek** oso gertukotzat dutela urretxuarren, zumarragarren edo azkoitiarren euskara giputza eta urrunekotzat, aldiz, Durangotik sartalderako bizkaitarrena. Koldo Zuazo

Antzuolarrak bikain egin zuen bere lana, bai bakarka eta baita korua laguntzen ere. Berria - Kultura

---

antzutasun *iz* antzua denaren nolakotasuna.

Zure **antzutasuna** dela medio, guk ez dugu ondorengorik izan. Patxi Zubizarreta

Berriro sentitu zuen, gaitzik gabeko egia baten antzera, gizonen **antzutasuna**, zeren berak egiten ez bazuen inork ez baitzuen egingo. Anton Garikano

Ordubetean gizonezkoen **antzutasuna** detektatzen duen testa sortu dute. Berria - Gaiak

Gerta daiteke, era berean, pertsona horri **antzutasuna** diagnostikatzea. Berria - Gaiak

Espermaren azterketa genetiko bat egiteak **antzutasuna** tratatzeko bide berriak sortzeko aukera eskain dezake. Berria - Gaiak

Zein atarramentu lukete gure hiriek, baldin eta kastuago bizi diren herri txikietako emakumeek ez balute hiriko andereen **antzutasuna** konponduko? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Dialektikan aurrera ezin egina, hitzen **antzutasuna**. Hasier Etxeberria

Bide errepresiboaren **antzutasuna**. Berria - Harian

Ezarri aurreko diagnostikoa egin nahi duenak kanpora joan behar du, Bruselako zentro batera edo, kasu jakin batzuetan, **Antzutasunaren** Valentziako Institutura. Berria - Gaiak

Ezohikoa bihurtu den edo denbora baterako **antzutasunean** erori den esparruan. Xabier Arregi

Bertako ura **antzutasunaren** aurkakoa dela sinesten zuten duela gizaldi askotako euskaldunek. Berria - Euskal Herria

New Yorkeko Lagunduriko Ernalkuntza eta **Antzutasuna** Zentroko zientzialariak. Bide horren **antzutasun** agerikoa ez da gaur bertakoa. Berria - Gaiak

Joritasun goxo honetan, bizitzaren iturri eta apar honetan murgildu zen arraren **antzutasun** hiltzailea, latoi puska bezala, agor eta soil. Anton Garikano

Baliteke, borondatezko **antzutasun** horren eraginez, gizonak ondo erantzun ez izatea harreman sexualetan. Luis Elberdin

Aurrekoa, nequitia latinezko nihil-etik dator, hots, deus ez, nolabaiteko **antzutasuna**. Lau **antzutasun** kasutik bat meiosian gertatzen den aldaketa batek eragiten du. Imanol Unzurrunzaga

Haziaren aldaketa genetiko batek eragiten ditu **antzutasun** kasuen %25, Bartzelonako zientzialari talde batek jakinarazi duenez. Berria - Gaiak

Gaur egun Osakidetzak **antzutasun** arazoak dituzten bikoteei eskaintzen dien laguntza zerbitzua "oso ur ria" da eta zerbitzuak "gabezia ugari" ditu. Berria - Harian

Horixe bera ere -esan nion- **antzutasun** mota bat besterik ez da, eta gogamenen gosea modukoa. Imanol Unzurrunzaga

Bizitza gauza ergela da, emoziorik gabea, gorabeherarik gabea, hemen behintzat, eta alde guztietan berdin, nik uste, eta izumenez betetzen da gogoeta, bizitzaren emozio-**antzutasunaren** ordezkagarri. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzutasun arazoak (7)

---

antzutu, antzu(tu), antzutzen **1** da/du *ad* antzu bihurtu.

Nire olerkien substratua beti izango da berbera, bizitza eta bizitzako zerak, baina **antzutu** edo moztu egin naiz neurri batean. Ana Urkiza

Nire odolak Eskualdea zikintzen badu, lurra **antzutu** egingo da, inolako sendabiderik gabe. Agustin Otsoa

Geuk, abertzale askok mentatu zuten zuhaitz zaharren adarrari txortenak zitalkeriaren guraizeekin moztu dizkiogu, gure adurrezko lanbroarekin baratza erneak **antzutu** ditugu. Jokin Urain

Ez ditzagun euskararen militanteak epe motzeko zereginetan erre, gaztetako urte gutxi batzuetan aktibismoaren bide antzuetan **antzutu**. Berria - Euskal Herria

Antzutu ezazu zure ezkontza. Josu Zabaleta

Poliziak galdekatutako 36 emakumetatik 12k ez zuten gogoratzen **antzutzeko** baimenik eman izana. Berria - Gaiak

Norbaiten hitza **antzutzeko** ez dago norbait hori jainkotzea eta harri bihurtzea bezalako xixtimarik. Iñaki Segurola

ETAren "Beste" nagusiaren mende egon da euskal politika **antzututa**, hitz egiteko gaitasunik gabe, antagonismotik inolaz irten ezinik. Joseba Zulaika

Badirudi printzipio genealogikoak, NIaz estutu ahalean MUNDUaz arroztu egin gaituela, atzenerako geure buruaz eta munduaz asper gaizto egiteraino **antzutuz** eta xirolduz. Patziku Perurena

Urbasatik Lizarrarako tartean egin zuten zuloa, bi minutu pasatxo, baina haizeak bikotearen ahalegina **antzutu** zuen erabat, 15 kilometroan. Berria - Kirola

Landare arrak **antzutu** egin dituzte. Berria - Gaiak

2 (era burutua izenondo gisa)

Baina Otsoenean ez da halako eremu **antzuturik** aurkitzen ahal, aitzitik, izatekotan, belarra ugariegi da, sasia eta laharra handiegi ageri da zenbait ertzetan. Hasier Etxeberria

Zer ari ote ziren gure artzainak mendi eta bortuetan, ardiak **antzutuak** zirelarik eta udako egunak luze? Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
antzutu egin (5)
antzututako emakume (3)

---

antzutze *iz* antzu bihurtzea.

Bi gauza gerta daitezke halakoetan: menopausia goiztiarra izatea edo **antzutzea**. Berria - Gaiak

Mendebaldeko jeinu artistikoaren **antzutzea** aurrekoa bezain nabarmena izan zen pintura eta eskulturaren eremuetan ere. Iñaki Mendiguren

Jende deportatu hura hirugarren xede baterako ere erabili zuten: SSko medikuek hainbat esperimentu egin zituzten eurekin, tifusa, **antzutzea**, hotzarekiko erresistentzia e.a. ikertzeko. Urtzi Urrutikoetxea

Era berean, Antisorgailuak, **antzutze** teknikak eta abortua ere gaitzesten ditu. Berria - Gaiak

---

anu

1 ***anu egin*** du *ad* nekatu, unatu.

Ez dizut kontatuko zenbat neke eta trabailu, eta zenbat pena eta sufrimendu pairatu behar izan genuen, ezta zenbatetan sentitu izan nintzen ahiturik eta **anu eginik** ere, zeren zuhaurk ere imajina baitezakezu. Joan Mari Irigoien

---

anulatu, anula(tu), anulatzen *(ETCn **301** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **baliogabetu**, **deuseztatu**, **ezeztatu**, **indargabetu** eta **hutseratu** agertzen dira)* du *ad* indargabetu, baliogabetu, ezeztatu.

Hobe dela erreserbak egitea aldez aurretik bidaia-agentzien bidez luxuzko hoteletan, gero **anulatu**. Jon Arretxe

Zortzi puntutan bildutako arrazoien ondoren, Chavezi eskatzen diote baimen hori **anulatzeko**. Pako Aristi

Jeneralak ez ote zuen kalkulatu ni bizirik lagata **anulatu** egingo ninduela, galdetzen nion neure buruari Euskal Herrirako bidean. Koldo Izagirre

Amaren aurrean, gizonezkoak guztiz babesle jartzen dira, eta babes horrekin, zeharo **anulatzen** zaituzte emakume, izaki eta profesional gisa. Ana Urkiza

Ikuspegiz aldatu beharra dago; batetik, ama alabaren ikuspegitik deskribatzea falta da, eta, bestetik, ama hori ama izateaz gain emakumea ere badela agerraraztea; amaren deskribapena egiten denean, emakumearena ere egitea; bestela, emakumea beti **anulatu** egiten baita. Ana Urkiza

Emakumea izanik, **anulatuta** zaude, eta, beraz, bizirauteko modu bakarra gizona izatea zela pentsatzen nuen. Ana Urkiza

---

anulatzaile *izond* anulatzen, ezeztatzen duena.

Nire azken nobelak bazeukan egilearentzako lelo **anulatzailea** bihur litekeen pertsonaia. Berria - Kultura

Obra baten arrakastak egileari ezar diezaiokeen "kondena", indar **"anulatzailea"** aipatzen zuen Koldo Izagirrek joan den igandean egunkari honetan argitaratutako elkarrizketan. Berria - Kultura

---

anuntziante *iz* iragarlea, iragarpena egiten duena.

Sarri esan izan dut, elurra hotsegile aparta dela, **anuntziante** primerakoa, bere lana gutxik bezala saltzen dakiena. Pello Zabala

---

anuntziatu, anuntzia(tu), anuntziatzen *(ETCn **33** agerraldi; orobat **anontziatu** **2** agerraldi eta **anontzatu** agerraldi **1**)* du *ad* berri eman.

'Gaur, oilarra patatekin,' **anuntziatuko** du sukaldariak. Joseba Sarrionandia

Hor **anuntziatzen** diren kontzertuak nik irakurtzen ditudanerako pasatuak dira. Berria - Harian

Filma **anuntziatzen** zuen kartelean, gizon bat ageri zen itxuraz urrutiko abentura batean galtzeko asmoan. Matías Mujika

Betiko gauzak modu berri batez esango dituena, gaurko gizartearen ispilu dena eta biharkoa **anuntziatzen** duena gaurko elea erabiliz. Ana Urkiza

Orduan Lakatosen sarrera **anuntziatu** zuten. Matías Múgica

Huxley-k eta Orwell-ek **anuntziatu** ziguten unibertso terrorifikoan ia sartuak baikara. Ana Urkiza

Anuntziatu gabe sartu nintzen Solowejczyken bulegoan. Matías Múgica

---

anuntziazio *iz* jai katolikoa.

Gabon eguna dela eta **anuntziazio** zaratatsua egingo da. Joseba Sarrionandia

---

anuntzio *iz* iragarpena; iragarkia.

Exotic Cruise Vacations **anuntzioa** irakurriko duzu horman. Joseba Sarrionandia

Hauxe zen baserritar eta artzain askorentzat neguko atariko **anuntzio** eta pronostiko fidagarria. Pello Zabala

Orduan da **anuntzio**, handik egun pare batera nobedaderen bat arrimatuko zaigula. Pello Zabala

Emaztea adatsetik zeramala gelditu zen tabernaurre guztietan "Beha ezazue puta hau, senarra lanera joateko zain egoten duk auzoarekin oheratzeko!" zuela **anuntzio**. Koldo Izagirre

Ni ere han nengoen, eta garbi entzun nion aitari iruzkina, telebistaz citroënen **anuntzioa** ematen hasi zirenean. Joan Mari Irigoien

Marketin arau guztiak betez, puxiketan **anuntzioa** jarriz eta afixa erraldoiekin iragartzen dute bertako okela, eta euro batean saltzen dute. Berria - Kultura

Jaki afrodisiakoen **anuntzioak** irakurtzen gelditu naiz koloretako kioskoen aurrean. Joseba Sarrionandia

Halere, antzina, bestelako mezuen igarletzat hartzen zituzten lehenago, eguraldi **anuntziotan** baino. Pello Zabala

Noski, horrenbeste **anuntzio**, abenduan abiatzera goazeneko kaleetan eta jarriaz gero, telebistetan halamoduz **anuntzioz** josi eta gero, eskaparateak hala txukundu eta hornitu eta gero, nola ez ohartu? Pello Zabala

1900ean, azaroko 14an, lau ordu aurrez, abian zetorren ekaitz erasoaren **anuntzio** gardena bota zuen. Pello Zabala

Irratia piztu eta nahikoa zen koloniaren **anuntzio** kantatuaren ondoren albiste txarrak entzuteko, sarritan aipatzen zen gerra. Joseba Sarrionandia

Baina iragarpen horri ez dago gezurra deitzerik, **anuntzio** hutsa baita. Pello Zabala

anuro *(corpusean ez dago; ETCn 37 agerraldi)* *izond/iz* anfibioez mintzatuz, isatsik ez duena.

Uhandre bat eta hiru **anuro** edo isatsik gabeko anfibio espezie topatu ditugu Lezon. ETC-prentsa

Anfibio **anuroen** artean badira jauzi azkarrak eta indartsuak egiten dituzten igelak (Rana agil adibidez; izena bera nahiko argigarria da), baina baita salto txikitxoak baino egiten ez dituzten beste zenbait igel eta apo ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Anuroen taldekoa da jauzkaria. ETC-prentsa

Nahiz eta **anuro** gehienak urarekin eta putzuekin loturik egon, badaude ere zuhaitzetako eta basamortuko ingurunetara ohitutako espezieak. ETC-entziklopedia

Apo arrunt iberiarra ("Bufo spinosus") Bufonidae familiako **anuro** bat da. ETC-entziklopedia

Myobatrachidae **anuroen** familia bat da, Australian, Tasmanian eta Ginea Berrian bizi dena. ETC-entziklopedia

Zenbaitetan beste **anuro** batzuekin partekatzen du gordelekua, apo arrunta ("Bufo bufo") edo apo lasterkariarekin ("Bufo calamita"), esaterako. ETC-entziklopedia

Egokitzeko mekanismo horiek **anuro** espezie askok, hau da, beste igel eta apoek, partekatzen dituzte. ETC-entziklopedia

Zapaburu, txalburu, apaburu, bilinbolo edo zahalburu anfibio **anuroen** larba da, batez ere igel edo aporena. ETC-entziklopedia

---

aoiztar *izond/izlag* Aoizkoa, Aoizi dagokiona; Aoizko biztanlea.

Aoiztarrak txapelketa lau aldiz eskuratu baldin badu ere aurtengo edizioko kanporaketa guztiak jokatu behar izan ditu. Berria - Kirola

---

aoki *iz*

Aoki : Ereinotz japoniarra *(aucuba japonica)*. Ibon Uribarri

Aoki zuhaitzaren fruitu gorriak ziren. Ibon Uribarri

---

aoristo *iz* hizkuntza indoeuropear antzinakoen, eta bereziki grekoaren aditz aldia, iraganean gertariko ekintza bat adierazten duena haren iraupena edo amaiera markatu gabe.

Hamazazpi eskola-urtez **aoristoekin** eta Peloponesoko gerrarekin eta enparauekin jo eta su jardun ondoren, aurreneko aldiz, ikasitako gauzak baliagarri izaten hasiak zitzaizkidan. Juan Garzia

Iraganaldi burutugabea, geroaldia eta **aoristoa** desagertzea, burutuaren bikoizketa ezabatzea eta abar. Isabel Arrigain

Horrelako aditz formetan ere erori zen, zeinetan s-a **aoristoaren** ezaugarri baitzen, (horrenbestez,... eta abar sortu ziren). Isabel Arrigain

Aoristo arkaikoaz, eta abar. Txillardegi

---

aorta **1** *iz* odol zirkulazio sistemako arteria nagusia, bihotzetik ateratzen dena.

Aurikuletatik jasotako odola biriketara bidaltzen du eskuineko bentrikuluak, birika-arterian zehar; ezkerreko bentrikuluak, berriz, gorputz osora bidaltzen du odola, **aorta** arterian zehar. Berria - Gaiak

Bi saihets hautsi zituen eta **aorta** lehertu egin zitzaion. Berria - Euskal Herria

Bentrikuluaren uzkurtzea amaitzen denean, bere egoera normalera itzultzen da **aorta**, eta arteria txikiagoetara bultzatzen du odola; horrenbestez, egonkor samar mantentzen da emaria. Irene Aldasoro

Ezkerreko bentrikulutik **aortara** irteten den odol-zurrusta ez da oso urrun joaten hasieran; parte handi bat **aortan** geratzen da, **aortaren** pareten zabaltzeari egokituta. Irene Aldasoro

Arteriok **aortatik** irteten dira, eta hornibide nagusitik gorputzeko beste organo eta ehunetara desbideratzen dute odol oxigenatu berria. Irene Aldasoro

Orain, ustekabeko eta ezin saihestuzko zerbait gertatuko ote zitzaion beldur zen: buruko odol-kolpe bat, bihotzekoa, **aorta** mehe zozoren bat behingoan lehertzea, odolaren presioari ezin eutsirik, hala nola lehertuko litzatekeen hatz lodi batzuetan nekez sarturiko eskularru estua. Jose Morales

Gizonak botika batzuk hartzen zituen **aortako** aneurisma bat zuelako. Berria - Gaiak

Autopsiak agerian utzi zuen **aortako** aneurisma baten ondorioz odolustuta zendu zela Rivero. Berria - Kirola

Txagorritxun probak egin, eta **aortako** estenosia duela esaten diote. Berria - Euskal Herria

Aortako balbulari eragiten dion bihotz lesio bat diagnostikatu zioten pasa den astean. Berria - Kirola

2 *abdomeneko aorta* *(corpusean ez dago; ETCn 21 agerraldi)*

Abdomeneko aorta arteria handiaren beheko zatia da. Diafragman hasten da, beherantz toraxeko aortaren jarraipena izanda, eta arteria iliakoetan amaitzen da. ETC-entziklopedia

Barrabil-arteriak **abdomeneko aortatik** irteten dira, eta beherantz joaten dira izterrondoko kanalean zehar, eskrotoan sartzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Funtsezko bi bide daude ekiteko: femorala edo Seldinger-en teknika aorta gaineko enborrak, goiko gorputz-ataletako arteriak eta **abdomeneko aorta** eta haren adarrak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aorta alboko, bereziki **abdomeneko aortaren** aldamenean gongoil sinpatikoetatik gertu kokatzen den zelula taldea (Corpora paraaortica, Glomera aortica). ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *aorta arteria*

Aurikuletatik jasotako odola biriketara bidaltzen du eskuineko bentrikuluak, birika-arterian zehar; ezkerreko bentrikuluak, berriz, gorputz osora bidaltzen du odola, **aorta arterian** zehar. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aortako aneurisma baten** (3)

---

aortiko *(corpusean ez dago; ETCn 58 agerraldi)* **1** *izond* aortari dagokiona.

Janaria esofago barrurantz iragazten da, eskuinerantz, eta ura kanporantz ateratzen da zakatz-arraileta tik, aldi berean arku **aortikoetako** odola oxigenatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Trakea-adarkatzea eta bularrezur-diafragma angelua lotuko lituzkeen lerro baten inguruan bilatu behar da: lerroaren gainetik badago **aortikoa** izango da (balbula bikuspidea), eta, azpitik badago, berriz, mitrala (erreuma-balbulopatia, Paget-en gaixotasuna). ETC-zientzia, zuzenbidea

Sinu karotiroideoan eta arku **aortikoan** aurkitzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Toraxean lau auskultazio-foku nagusi daude, bihotzeko tonu nagusien epizentroa entzuteko: foku **aortikoa**, birika-fokua, foku trikuspidea eta foku mitrala. ETC-entziklopedia

Toraxeko nerbio esplakniko txikiaren zuntzak gongoil **aortiko** errenalean sinaptatzen dira. ETC-entziklopedia

Diafragmaren atal lunbarrean dago, baina zulo **aortikoa** baino gorago, gutxi gora behera 10. orno torazikoaren (T10) mailan. ETC-entziklopedia

Hortaz, kimiohartzaile horien artean sailkatzen dira dastamen-sistemako papilak eta bai gorputz **aortikoak** ere, odoleko oxigeno-kontzentrazioaren aldaketak detektatzen

dituztenak. ETC-entziklopedia

2 *balbula aortiko* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Balbula aortikoa ezkerreko bentrikuluaren eta aortaren arteko balbula kardiakoa da, baldintza normaletan hiru kuskuk (balbula semilunarrek edo sigmoideoek) osatuta dagoena. ETC-entziklopedia

Konplikazio kardiako larria zuen: **balbula aortikoak** ez zion behar bezala funtzionatzen. ETC-literatura, saiakera

Demagun **balbula aortikoaren** (hots, arteriako odola bihotzetik irteten den puntuaren) eta buruaren arteko distantzia (altuera-diferentzia) 2,50 m dela: zenbatekoa da presio minimoa **balbula aortikoan**? ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *estenosi aortiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Estenosi aortiko zorrotza Kardiomiopatia hipertrofikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

apa 1 *iz* musua, muxua. ik **pa**.

Apa bi eman zizkion Felisak. Josu Landa

Haietako bat bere semea bide zen eta haren **apa** jaso zuen matrail bixarraz ziztatzailean. Josu Landa

2 *apa egin* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Estrellitaren aldaka kiskalietara **apa egin** eta larrua jo zuten. ETC-literatura, saiakera

3 *ipi-apa*

Antzeko zerbait gertatu zitzaion Ellari baina bi gizonekin -aita-semeak-, eta Ellak gogoan zeuzkan **ipi-apa** guztiak. Anton Garikano

I (A: bilin-balan, bristi-brasta, dilin-dalan, dinbi-danba, dinbili-danbala, firin-faran, firri-farra, hinkili-hankala, **ipi-apa**, kilin-kalan, kinkili-kankala, kirriki-karraka, ñiki-ñaka, pinpi-panpa, plisti-plasta, sigi-saga, tiki-taka, tipi-tapa, tirriki-tarraka, triki-traka, trikun-trakun, txipli-txapla, xirmi-xarma, ziburu-zaburu, zigi-zaga, zirkun-[...]. Iñaki Arranz

Larunbata noiz iritsiko pasatu nuen aste osoa, **ipi-apa** guztiekin planeatu nuen zer esango nion eta zer egingo genuen zinean eta zinetik irten ondoren. Anjel Lertxundi

Ipi-apa guztiekin esplikatu behar zaizu dena. Anton Garikano

Berehala konturatu nintzen gauza guztiei **ipi-apak** eta ñabardura orori osoro erantzuteak luze joko zidala egun hartan, eta ez zela auzitegi bat halako luzamenduetan ibiltzeko moduko lekua. Hasier Etxeberria

---

apaburu *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)* *iz* zapaburua. ik **txalburu**.

Zapaburu, txalburu, **apaburu**, bilinbolo edo zahalburu anfibio anuroen larba da, batez ere igel edo aporena. Gehienetan urtarrak badira ere, badaude lehortarrak ere. ETC-entziklopedia

Garapena oso azkarra izaten da, eta bospasei egunetan 20 mm inguruko luzerako **apaburu** txiki arre-ilunak jaiotzen dira bertatik. **Apaburu** hauen garapenak eta metamorfosiak beste 6-8 aste behar izaten ditu, eta epe horretan 10-15 mm-ko ehunka apotxo lehorreratzen dira. ETC-entziklopedia

Izan ere, eta igel eta apoen **apaburuak** ez bezala, uhandreen larbak ehizarako moldatutako forma aktibo eta lurraldekoiak izaten baitira. ETC-entziklopedia

Bi **apaburu** eder. ETC-literatura, saiakera

Eta ondorioz, beldur zara zure pertsona osoa mendre gera dadin, **apaburua** ur agortuan lez. ETC-literatura, saiakera

Egin berri duten begi-globoa igel enbrioien zelulekin egin dute, eta **apaburu** bati jarri diote. ETC-prentsa

Duela gutxi, txalburuak (**apaburuak**) izango zirenak puntu beltx-beltxak ziren putzuan. ETC-prentsa

---

apagogiko *izond* egiaren dedukzioan oinarritzen den arrazoibide logikoa.

Froga **apagogikoa** zientzia ezberdinetan erabiltzearen benetako zergatia hau da: ezagutza jakin bat eratortzeko oinarriak anizkunegiak badira edo sakonegi ezkutatuak badaude, orduan froga ondorioen bitartez lortuko ez ote den saiatzen dela. Ibon Uribarri

Froga-era **apagogikoa**, ordea, gure errepresentazioen alde subjektiboa alde objektiboari, hots, objektuan dagoenaren ezagutzari zerbait amarruz sartzea ezinezkoa gertatzen den zientzietan besterik ez da zilegizkoa. Ibon Uribarri

Hau da arrazoimen hutsaren hirugarren erregela bereizgarria, bera froga transzendentalei dagokienez diziplinari menperatzen zaionean: bere frogak beti ostentsiboak izan behar dutela, inoiz ez **apagogikoak**. Ibon Uribarri

---

apagogikoki *adlag* era apagogikoan.

objektuaren ezinezko adigaia dute oinarrian eta hor erregela honek balio du: "non entis nulla sunt praedicata", hø dØ, objektuaz baieztatuz nahiz ezeztatuz esaten dena okerra da eta ezin da **apagogikoki** aurkakoaren errefusapenaren bitartez egiaren ezagutzarik lortu. Ibon Uribarri

---

apaidiñ *iz* aita pontekoa.

Amaren osaba kuttuna eta **apaidiña** duk. Txillardegi

---

apaijo ik **apareju**.

---

apailaketa *iz* apailatzea, prestatzea, antolatzea.

Alain Pessans-en trptikoak ozenki kantatzen du askatasuna eta Leire Etxagibel-en **apailaketak** lerrokatzen ditu bederatzi argazki eta hainbat gauza ezohiko hitzak nahasiz, ikuslearen adimenari eskainiz berezitasuna. Herria

Haiek oro "hizkuntza komun batekoak" izatea (flandriar, aleman, daniar, suediarrak; baina baita ingelesak ere: zergatik bereizi germanistak eta anglosaxonistak, kontua hizkuntza baldin bada?), Unamuno-ri interesatzen zaion **apailaketa** da, berak espainolez mintzo diren arraza ezberdin guztiekin (hizkuntza erromanikoen arraza barik!) panhispanismo bat osatu ahal izateko. Joxe Azurmendi

Elizak bere liturgi **apailaketak** ari ditu artoski prestatzen. Herria

---

apailakuntza *iz ipar* apailatzea, prestatzea, antolatzea.

Gure aitzinekoak horrelakoak ziren, zapalduezinak beren zozo airearekin, **apailakuntzarik** gabe pairatu ehun mila hersturetarik bizirik atereak, ausarki jatea eta edatea saritzat zeukatenak. Itxaro Borda

Bi asteko soldadu-**apailakuntza** ukana zuten Marseillan. Itxaro Borda

apailamendu *iz ipar* apailatzea, prestatzea, antolatzea.

Obrek 900.000 euro nunbeitan gosta dute, honela finantzatuak: Eusko Jaurlaritzak 560.000 euro, Udalbiltzak 122.000 euro, Herri Urratsek 106.500 euro eta gaineratekoa ikastolak berak antolatu kanpainatik, bereziki barne **apailamendu** eta tresnerientzat. Herria

Harpeen **apailamendu** berriak egin dira, eta zoin ederki, Sarako Leizeetan. Herria

DENEN ETXEAN, PLU edo herriko lurren **apailamendu** berriaz. Herria

---

apailatu, apaila(tu), apailatzen da/du *ad* prestatu, antolatu.

Horretarat **apailatua** nintzen, Gexan ikusirik izen-ordeen artean. Janbattitt Dirassar

Andreak arrats hartan berean, denbora laburrez, gaitzeko afaria **apailatu** zuen eta adixkide guziak gomitatu, herritar bat bazutela, Etxauzko bizkondearen eskutaria zela. Michel Oronoz

Bozek menturaz jadanik bazekien Otsabideko harrobian zer pasatu zen, eta ezbehar honengatik erasia aldi bortitz bezain egokiaren ihardukitzera **apailatu** ziren. Itxaro Borda

Amerikanoak jin zirelarik, egiazko eritegiak **apailatu** ahal izan ziren, izurriteri gogor egiteko. Marzel Etxehandi

Jesus Rubiok **apailatu** duen liburua zeharo desberdina da nahiz berak ere, Koldo Zuazok bezala, euskarari buruz duen kezka agertzen duen liburuaren orrialde bakoitzean. Pello Salaburu

Orain, dena dela, lantegia **apailatzeko** urrats honetan, badakikezu zertan lagun nazakezun. Txillardegi

Mintzatoki bat **apailatu** zuten eraikuntza aitzinean, eta etorri berriak harantz abiatu ziren agintariekin, Sozietate Popularraren kide parrastarekin, eta kuriosekin batean. Elena Touyarou

Herrixkak ez du museorik, baina udaletxeko areto berezi bat **apailatu** diote esploratzaileari erlikiak erakusteko. Joxean Agirre

Marseillako boluntarioek famatua bihurtu zuten kantua emanik, ordezkari eta agintariak eskapatu ziren Herriko Etxean **apailatu** jaki goxoen gozatzera. Elena Touyarou

Gogoetaren ahalegina behar du, hedatuko bada, eta hari atxikiz gero aro teknikoaren muinera daroan eta berau zeharkatzen duen bidea **apaila** genezake. Markos Zapiain

Bazekien nafar herrietan nola **apaila** pilota txapelketak mutiko gazteen artean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez bat eta ez bi, bere teoria berezia **apailatu** zuen. Juan Garzia

Berak ustez erabilitako neurri berean **apailatu** nituen lerro batzuk hurrengo egunean. Aingeru Epaltza

Ahalik ohore handienean errezibituko dinagu, **apailatuko** diogun bainura gonbidatu eta, bargo gurintsuaren pare, trebeki eta halabiz batean sangreatuko. Itxaro Borda

Komando bat **apailatu** beharko dugu, segidan! Jose Angel Irigaray

Hauek dira prestaera hurbilenaren eta egiazkoaren baldintzak, Izpiritu Santua hartzeko geure buruak **apailatu** nahi baditugu. Joan Mari Lekuona

Jakaren papar-hegalak lisatu zituen, ahoa neurritasunez **apailatu** zuen, bi dolar ordaindu zituen eta zintzilikario gorri, zuri eta urdinez hornitutako gela handi zaratatsu batean sartu zen. Lopez de Arana

Emakumeen goizaldeko patxada hori, adibidez, jantzi ere baino lehen ontzi batean loreak **apailatzen** aritzeko erakusten duten iaiotasun hori, maitasunaz-eta ezkontzaz-eta mintzo diren bitartean, hori jasanen duen gizonik ez dago, nik uste, non eta itxurakerian ari ez den. Joxe Austin Arrieta

Bakoitzak bere zakua prestatzen du, soinekoak **apailatzen**. Marzel Etxehandi

Azaltzekoa zen zertifikata erdietsirik Arno metroko langile bilakatu zela eta Xaxik gauez gau postako konkurtsoa aurkezteko etsamina **apailatzen** zuela. Itxaro Borda

Hala, Annanek onartzen du geldialdi horrek eragotzi egiten duela NBEren Segurtasun Kontseiluak Baker Plana ordezkatuko duen beste plan bat **apailatzea**. Berria - Mundua

Liburua **apailatzeaz** gain, hitzaurrea eta epilogoa ere idatzi ditu Ignazio Aiestaranek. Berria - Kultura

Senar-emazteak hasi ziren berehala janariaren **apailatzen**, gomita ez zela errefusatzen eta bertze. Aurelia Arkotxa

Eta gelan tinki sartu jendalde ilun guztia irriz karkailaka lehertzen zen, Joanesek ostalerari edari botilen **apailatzeko** manua helarazten ziola, besoak eihera herdoilduaren pare inguratuz. Itxaro Borda

Talde iraultzaile armatu batek zer jokaera hartu behar ote zuen Espainian hala moduzko demokrazia bat **apailatzen** bazuten. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apailatu behar** (7); **apailatu duen** (5); **apailatu zen** (4); **apailatu zuen** (4); **berezi bat apailatu** (4); **holako zerbaiti apailatu** (4); **nola apailatu** (6)
> **nola apaila** (4)
> **apailatua da** (3); **apailatua zen** (3); **urkizuk apailatua** (3)
> **nola apailatuko diren** (3)
> **hola apailatuz** (3)
> **botz apailatze denboran** (3)
> **apailatzen ari** (13); **apailatzen dute** (5); **baten apailatzen** (3); **nola apailatzen** (6)

---

apailatzaile *(orobat **apailatzale** g.er.) iz* prestatzailea, antolatzailea.

Jule Renteriak gorderiko lanekin osatu du liburua Igone Etxebarriak, liburuaren **apailatzaileak**. Berria - Kultura

Orbelaundik Arantzazura izeneko karpetako testu bat ere sartu dute, ordea, liburuaren **apailatzaileek**, Gandiagaren Adio-ren barruan, liburuaren sarrera gisa. Berria - Kultura

Patxi Altuna euskaltzaina hil da, euskal idazle klasikoen edizio kritiko askoren **apailatzailea** eta Euskaltzaindiko Gramatika batzordeburu izana. Berria - Kultura

Polizia gizonak dira omen sobera bortizki jokatu manifestatzaleekin, bai eta manifestaldiaren **apailatzaleri** heien bil tokian direlarik sartu, abrekeria zutela merke. Herria

'XX. mendeko poesia kaierak' (2000, Susa; **apailatzailea**: Koldo Izagirre). Berria - Harian

Apailatzailea: Antonio Zabala. Berria - Kultura

'Ikaskuntzak euskal literaturaz (1974-1996)' (1998, Deustuko Unibertsitatea; **apailatzaileak**: Elixabete Perez, Ana Toledo, Esther Zulaika). Berria - Harian

---

apailatzale ik **apailatzaile**.

---

apailu 1 *iz* prestamena, prestalana.

Apailu orok teknikaren aldetik dituen zenbait ondorio aztertuko ditugu lehendabizi, eta gero **apailuaren** kontzeptua bera sinbolismoaren eremuaren barruan kokatzen ahaleginduko gara. Josu Zabaleta

Datu material eta antolamenduzko horien guztien multzoari deituko diogu guk **apailu**; zentzu hori ematen baitzitzaion, hain zuzen ere, hirurogeiko hamarraldian zinemari buruz egin ziren -eta atal honen bukaera aldera aipatuko ditugun- garrantzi handiko zenbait azterketatan. Josu Zabaleta

Alderdiak badabiltza dena **apailu**. Herria

Poliziaren miatzeek ere erakusterat eman dute New-York-eko bi dorren suntsitzaleek beren **apailuak** eginak zituztela, parte bederen, Alemanian. Herria

Gure bigarren gauaren pasatzeko **apailuak** egiten ditugu -azkena omen da- bihar lekuan izanen gara. Marzel Etxehandi

Koadroak ideia hori bera egiaztatzen duten garai bereko testuekin lotuz, XVIII. mendeko pinturaren **apailua** aztertzen du, azken finean. Josu Zabaleta

Apailuak arautzen du [...] ikusleak obrarekin duen harremana. Josu Zabaleta

Era horretan, zinemak efektu estetiko bihurtu zuen hasieran zinematografiako **apailuaren** ezaugarri berezi bitxi samar bat baizik ez zena. Josu Zabaleta

Bi determinazio horien arteko topagunea da, eta topaketa hori gertatzeko konfigurazioak dira, beraz, **apailuaren** denborazkotasuna. Josu Zabaleta

Apailu alegera guzien artetik, hor dira ere arrangura pisu batzu. Herria

Ia irudi guztiek "daukate", irudiok aurkezteko **apailua** egokia baldin bada, ikusleari komunika diezaioketen denborazko zerbait. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egia da ez dituela hasiz geroz nihoiz baratu gerla **apailuak** Bush presidentak. Herria

Baina zinema-**apailuak** eragintzat ematen ziren eragin ideologiko horiek guztiak zerutik eroriak ez zirela onartu beharra zegoen nahitaez, kulturaren historia luze batean txertatzen zirela baizik. Josu Zabaleta

Asko azpimarratu da, adibidez, bideo-**apailuan** elkarren segidako irudien artean beltz-aldirik ez izatea, eta irudi hori tiraldi etenez eragina ez izatea. Josu Zabaleta

Hori da, bada, irudi-**apailu** ororen lehenengo datua. Josu Zabaleta

Argazki-**apailuak** , **apailu** hori izateko diren mila moduak gorabehera [...] beti du oinarrian ikusleak badakien gauza bat: argazki-irudiak denbora jakin bat atzeman duela, niri ekartzeko. Josu Zabaleta

Denborazko irudiak, ikusleak hartan parte hartu gabe, beren produkzio- eta aurkezpen-**apailuaren** eragin soilez, denboran zehar aldatuz doazenak. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
apailu ari dira (4); **apailu asko** (3); **apailu batzueri** (3); **apailu horrek** (3); **dena apailu ari** (5); **dira apailu** (3); **irudi apailu** (3); **zernahi apailu** (4); **zonbat apailu** (4)
bada apailua frango (4)
gerla apailuak (3); **gisa hartako apailuak** (3)
apailuaren denborazkotasuna (3); **apailuaren espaziozko** (3); **apailuaren kontzeptua** (3)
apailuari buruz (3)

---

apain **1** *izond* txukun prestatua. ik **dotore**.

Honela bada, Jose hurbildu zenean, anaiek soinean zeraman jantzi **apain** hura kendu zioten. Elizen arteko biblia

Erakustoki **apain** bat egokitu zuen bizkortasun apartaz, zeinak, itzaletan, kolore simetrikoz egindako tapizeri lana ematen baitzuen. Karlos Zabala

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eginahalak egin ditut nik neure Jainkoaren etxea eraikitzeko behar den guztia prestatzen: urrea, zilarra, brontzea, burdina, zura; bai eta onize eta **apain**-harriak, harri beltzak eta koloredunak, era guztietako harribitxiak eta hartzuri ugari ere. Elizen arteko biblia

Ongi tuntuna litzateke Kiteria, Basilioren palankari-ezpatari dohainak aukeratzeagatik, Kamatxoren **apain**-bitxiak utziko balitu. Patxi Ezkiaga

Gainean, buru-ttonttorrean, jasminez, arrosez, almitzez eta aihen-zuriz egindako **apain** buruntzak. Patxi Ezkiaga

Quenuk, **apain** lanetan gastatutakoarengatik ikaraz egon ondoren, ia begirunea sentitzen zuen bere emaztearenganako. Karlos Zabala

Gure oraingo dama dotoreak adina bai, nahiz eta hauek inoiz edo inon ikusi ez diren sorkariak jantzi, alferkerian **apain**-kezkak erakutsiak alegia. Patxi Ezkiaga

3 *adlag*

Berdez jantzia, era berean anderea ere eta hain dotore eta **apain** , lirain ederra bera zirudien andereak. Patxi Ezkiaga

Emakume ederra zen, gainera, hantxe, ohe ertzean eserita, **apain** orraztua goiz-goizetik, hain garbia eta freskoa, barruko arropa liluragarriz jantzita. Karlos Zabala

Ez zuen **apain** ibiltzea gogoko; erdeinu handiz begiratzen zion Louiseri, honek, xingolazko korapiloak ageri-agerian, adarra jotzen zionean lepoko zapia oker lotua zeramalako. Karlos Zabala

Efoda, urrez, purpura more, gorri eta gorriminez eta liho-hari bihurrituz **apain** bordaturik egingo dute. Elizen arteko biblia

"Egin etxolaren sarrerarako oihala, purpura more, gorri eta gorriminez eta liho-hari bihurrituz **apain** ehundua. Elizen arteko biblia

Oso **apain** txalmatua eta gainean zaldun beldurgarria zeraman zaldia agertu zitzaien. Elizen arteko biblia

Niri haurrak **apain** eta garbi joatea gustatzen zait! Fernando Rey

4 ***apain-apain***

Silvio hagitz dotorea zen, **apain-apain** janzten zen. Fernando Rey

Arratsean, Florent arropa berriarekin **apain-apain** jantzita zegoen. Karlos Zabala

Apain-apain jarri zen, ikusiko zuten gizonak liluratzeko eran. Elizen arteko biblia

5 ***apain-mahai*** *(orobat* ***apainmahai*** *g.er.)* apaintzeko mahaia. ik **tokadore**.

Leiho batetik, emakume-usaina nagusi zen gela batean sartu zen eta egin gabeko ohe baten burukoaren azpitik eskua limurtu zuen, **apain-mahai** batean zehar. Lopez de Arana

Apain-mahai gaineko arrosa hori sorta batek isuritako freskura zimela sumatzen zen, gelako giro itogarrian. Lopez de Arana

Makillajea eman ezin zuela kexatu zenean, aitak **apain-mahai** gorri bat erosi zion, nakar itsatsiekin; hiru tiradera estu zituen behean, eta hiru kristaleko ispilu bat goian. Juan Kruz Igerabide

Gela... hemen berokien armairua; han sofa-ohea; **apain-mahaia** ; bionbo bat; eta leiho aurrean, kaobazko mahaitxoan gutun-azal urdin argia ehun lirekin. **Apain-mahaia** mugitu, eta emakumearen galtzerdi bat topatu nuen. Josu Zabaleta

Beragana joan aurretik bi gauza egin nituen: gelan bertan zegoen **apainmahaiko** izebaren lurrin flaskoa hartu eta pixka bat zabaldu nuen lepoan eta galtzarbeetan. Aitor Arana

Apain-mahaiaren kaxoi itsuan. Javi Cillero

Apain-mahaiaren tiraderan, mila eta hamar mila woneko billeteak utziak zituen, eta txanponak ere bai. Juan Kruz Igerabide

Lakatosek, esku hutsik sartu bazen ere, arrosa ilunezko sorta handia utzi zuen **apain-mahaian** . Matías Múgica

Goizean, aitak bizarra **apain-mahaiaren** aurrean egiten zuen, txistuka. Juan Kruz Igerabide

Itxita zeudenean ere, **apain-mahaiko** ontziek lurrina botatzen zutela zirudien. Juan Kruz Igerabide

Neskaren musu leunak **apain-mahaitik** pasatu berria zela pentsaraz bazezakeen ere, neskaren azaleko zurbiltasun zilartsua ez zen arroz-hautsez estaliriko masailetako muxika-biloxkarena. Anjel Lertxundi

Gero, atzazal-lima bat **apain-mahaitik** hartu eta O-a urratzen saiatu zen. Lopez de Arana

Makillajea eman ezin zuela kexatu zenean, aitak **apain-mahai** gorri bat erosi zion, nakar itsatsiekin. Juan Kruz Igerabide

6 ***apain orrazi***

Rosiek **apain-orrazi** bat ipini berria zuen bere ile beltzezko mototsean. Lopez de Arana

[...] pektinaz beteta, dantzari argazkiak ageri ziren orrialde batean zabaldurik, bi marmelada pote, opil erdi alde batean eta opil laurden bat beste nonbait, pektina, ispilua, orrazia, pospoloak, tabako errautsa, hautsontzia, liburuak, kulero batzuk, linterna, Van Daan andrearen **apain orrazia** , komuneko papera, eta abar. Josu Zabaleta

7 ***azal apainetan*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi)*

Laster batean negua ekarriko du, eta kaleak jaki edo diru eske dabiltzan neska-mutil zarpailtsuez eta **azal-apainetan** hazi ez diren emakume abandonatuez beteko dira. ETC-prentsa

Ukatu egin du azken urteotan EAEko PP? **azal-apainetan** ibili? izana, eta alderdiak kudeatu duen dirua herritarrek ordaindutako zergetatik lortu dela esan du. ETC-prentsa

8 ***mari-apain*** *izond adkor*

Nire ondotik, arreba Jonek lehen jaunartzea egin orduko irabazia zuen **mari**-apain eta ilupa fama, eta geroan ere tema berari atxiki zaio, **mari**-apain eta ilupa beti. Aingeru Epaltza

Bettina izan zen salatu ninduena: **mari**-apain hark ostatuko nire gela miatu eta lastairaren azpian ezkutaturiko pistola aurkitu omen zuen. Alberto Ladron Arana

---

apainarazi, apainaraz(i), apainarazten du *ad* apaintzera behartu.

Ileak **apainarazi** eta bizarra motzarazi ondoan, Durruty notarioaren lantegira hurbildu zen eta, hiruzpalau egunez lanera ez joateko baimena eskatu zuen. Elena Touyarou

---

apaindegi **1** *iz* norbait apaintzen den tokia.

Esnatu, hau ez da **apaindegia** eta. Lopez de Arana

Menopausia uxatzeko **apaindegiak**. Lopez de Arana

Ezaguna izan behar zuen **apaindegietan**, boutique garestienetan eta bitxi-dendetan; eta ez merkealdi garaian. Migel Angel Mintegi

2 (hitz elkartuetan)

Mendi muinoetan errauts gaizto batek jotzen zituen, alabaina, gure ameztoiak, gaztaindegiak ala mahastiak, eta ibar-zelaietan hesten ziren ilagindegiak, oihalgindegiak eta larru-**apaindegiak**. Piarres Xarriton

3 ***ile-apaindegi*** *(**57** agerraldi, **29** liburu eta **17** artikulutan; ETCn **13.925** agerraldi –12.147* ***Wikipedia****koak-; orobat* ***ileapaindegi*** ***26*** *agerraldi, **14** liburu eta **4** artikulutan; ETCn **299** agerraldi) iz*

Domingok etxe ondoko **ile-apaindegian** egiten zuen lan. Iban Zaldua

Ile-apaindegiko laguntzailea. Anton Garikano

Kale-kantoiko **ile-apaindegiko** mutil hori. Josu Zabaleta

Ile-apaindegiek eskaintzen dituzten zerbitzuetan. Iñaki Heras

Burua **ileapaindegian** orraztua eta ezpainak poliki margoturik zituen. Aingeru Epaltza

Globe **ile-apaindegia** ere itxi egin beharko da. Oskar Arana

Ileapaindegi bateko erakusleihoaren parean geldirik. Fernando Rey

Saint-Honore kaleko **ile apaindegi** baten aurrean. Karlos Zabala

Xiringa batekin **ile-apaindegi** batean lapurreta egiteagatik atxilotua. Berria - Euskal Herria

ile-apaindegira joateko hitzordua. Berria - Kirola

Gizonak **ile-apaindegian** biltzen dira. Pablo Sastre

Etxetik irtetera zihoala, ordea, nor topatuko eta ile-**apaindegitik** zetorren bere emaztea topatu zuen. Josetxo Azkona

---

apaindu, apain(du), apaintzen **1** da/du *ad* apain jarri, itxura hobetzen duten gauzez hornitu.

-**Apaindu** zaitez -esan zidan-. Juan Martin Elexpuru

Ez daitezela **apain** orrazkera nabarmenez, urrez, harribitxiz edota soineko aberatsez. Elizen arteko biblia

Erantzi zituen soinean zeramatzan zakukia eta alargun-jantzia, bainatu, gorputza usain-gozo bikainez igurtzi, ile-adatsa **apaindu** eta xingolaz lotu eta beraren senar Manases bizi zelarik eraman ohi zuen jaietako soinekoa jantzi zuen. Elizen arteko biblia

Jantzi, ilea **apaindu**, ukitu batzuk egin makillajean. Karlos Zabala

Dantzari soineko garbi bat jantzi, orrazkera **apaindu**, zilar doratuko gerriko bat lotu, eta hartan ahoa eta eskutokia metal berekoak zituen sastagai bat ipini zuen. Patxi Zubizarreta

Gero eta bilgarri gehiago erabiltzen dira salgaiak **apaindu** eta garraiatzeko. Berria - Euskal Herria

Haiek etorri ondoren, bainatu, begiak pintatu eta beren burua bitxiz **apaindu** zuten. Elizen arteko biblia

Urrezko koroaz eta babeski txikiz **apaindu** zuten tenpluaren aurrea, sarrerak eta gelak konpondu eta ateak ipini zizkieten. Elizen arteko biblia

Ondarroa herriaren 675 urteen karietara, herritarrek, balkoiak, karrikak, saltegiak eta ostatuak **apaindu** dituzte. Herria

Begiak zabal zabalik egona naiz ikustearekin nola eraberritu eta **apaindu** zuten abadia. Herria

Musikazale zenez, sala bat **apaindu** zuen behealdean musika saioak entzuteko, Sala handia zipres-zurez estali zuen eta gainetik urre garbiz jantzi; gero palmondo eta lore-xorta-irudiz **apaindu** zuen. Felipe Juaristi

Herioa asma liteke, disekatu, **apaindu** eta ospatu ere bai, baina, atzenean Biziak bereganatu eta ederragotzen du. Patziku Perurena

Irribarre ergela utzi eta irmotasun bortxatu batez **apaindu** nituen hitzak. Aingeru Epaltza

Txera bitxiz begiratu zion gorputz ñimiño hainbat aldiz **apaindu** izan zuen hari. Irene Aldasoro

Egia ez da inoiz bene-benetan egia, parte bat hitzekin **apaindu** edo ezkutatu edo makillatu, manipulatu egiten dugulako, geure neurrira ekartzen. Ana Urkiza

Tartean eta aire zabalean geratzen diren espazioak landare berdeekin **apaindu** behar dira. Santiago Iruretagoiena

Gure Jainko zuhurtziaz beteak ez dituela kreatu arrazoirik gabe eta alferretan hain izate handi, gora eta bikaineko gure arimak, ez eta ere haiek **apaindu** hain ahalmen aberatsez. Piarres Xarriton

Gezurretan aritu nintzen pixka bat, **apaindu** egin nituen kontuak dexente. Karlos Zabala

Soinekoaren lepoko zuridunaren ertzak ukitu-**apaindu** zituen bular gainean. Anjel Lertxundi

Gainera hainbat denbora emanen dut garbitzen eta **apaintzen**, zeren eta egun ontsa orrazturik nahi baitut egon. Jon Muñoz

Tapizez gain, errege-erregina hilen irudiek **apaintzen** zituzten paretak. Aingeru Epaltza

Amy eskuak bete amaraunekin itzuli, harrapakinak kendu, eta estali zuen Setheren bizkarra, Eguberritako zuhaitza **apaintzea** bezala zela esanez. Anton Garikano

Hire ezkon-ohea **apaintzea** ninan, haur laztana, gogoan, eta ez hire hilobia loreztatzea. Juan Garzia

Oheaz gain, armairu bat bazen, ateetan ispiluak zituena; **apaintzeko** balio zuen komoda bat; mahaitxo biribil bat, kakorratz lanez estalia. Karlos Zabala

Egun batean ministro izatera iristen bahaiz, ideiak emango dizkiat Paris **apaintzeko**. Karlos Zabala

Neskatxa batek erregearen aurrera azaldu behar zuenean, **apaintzeko** eskatzen zuen guztia eman ohi zioten, haremetik jauregira berekin eraman zezan. Elizen arteko biblia

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Artisauak urtzen du idoloa, zilarginak estaltzen urrez eta **apaintzen** zilarrezko katez. Elizen arteko biblia

Horrelaxe **apaintzen** ziren garai bateko emakume santuak ere. Elizen arteko biblia

Eskuliburuko faxista bat, ergela eta adoretsua, zeina armen lanbideak [...] ezjakintasun sendoz eta zozokeria larriz egoki **apaindu** baitzuen, baina ez baitzuen lortu, hala ere, usteltzerik ez gizagabetzerik. Juan Garzia

Gaitak, gainera, ondo **apaintzea** gustatzen zitzaion, hauspoan bikote baten oihalezko irudia josiz eta atzean zinta koloreduna ipiniz. Pako Aristi

Irudizta dezake inork nola edertuko genukeen eta zinez **apaindu**, berez ezin ederrago eta ezin apainago den hizkuntza noble hau, guztietan bat dena, horrela? Pello Salaburu

Zokoan ere portuaren ondo hortan aparkalekuak berriz **apainduko** dituzte. Herria

Zinezko gauzak axalez itxuraldatzen eta **apaintzen**, haurttoak bezala libertitzen ziren. Patziku Perurena

Burusia ganoraz **apaindu** nuen, eta, kanpora egin aurretik, Mihurubikoak agindu zehatza ematen zidala begitandu zitzaidan. Ez gara ohartzen gure diskurtso eskolastiko lojikaz **apaindu** eta itxuraz nobletu honek baino gizenki zuri gutxiago eta gihar gorri gehiago erakusten duela letratu gabeko edozein hiztun inozentek. Edorta Jimenez

Ezagun zitzaion ahairea hartu, elizan hainbatetan adituetarik bat menturaz, eta bat-batean berak asmatutako hitzez **apaindu** zuen. Itxaro Borda

Erabat desitxuratu zen, eta distiratsu **apaindu** ohi zuen gorputza ile-adats nahasiz estali. Elizen arteko biblia

Margoti eta niri paparreko orratz bana oparitu digu, zentimo bateko txanpon bat ongi **apaindu** eta distiraraziz egina. Josu Zabaleta

Ahalik eta ikusgarrien **apaindu** zuen lana, eta Niels Bohr fisikari daniar ospetsuari bidali zion, erantzun azkarra aldarrikatuz. Fernando Morillo

Bizkor-bizkor **apaindu** eta irten behar dun. Iban Zaldua

Hotelera itzulirik, arreta handiz **apaindu** zuen bere burua. Iñaki Zabaleta

Egunen batean gaitzeko pintaketaz **apainduko** genituen labar zabalak. Koldo Izagirre

Harribitxiz, oihal ederrez **apainduko** ote ditut, kalean arima onberak erakar ditzaten? Patxi Zubizarreta

Eraikin handi eta itsusi, adreilu gorriz **apaindu** batera. Felipe Juaristi

-Ebe, **apaindu** ondo, gaur egun berezia da. Sonia Gonzalez

Ongi irakurtzen eta skribatzen zuen eta hainbat liburu irakurriz janzten eta **apaintzen** zuen bere jakintasuna. Joan Mari Irigoien

3 (era burutua izen edo izenondo gisa)

Aurrena fezaren mortxila irten zen, hurrena bere gorputz kakotua, eta azkena bera agertu zen, zoruan zut, bere itxurari **apaindu** bat emanez. Patxi Zubizarreta

Sekulan ezin zen jakin nor zen solaskidea, eta bi gizon **apaindu** haiek, xingola palto hegian, zainketa komitekideak izan zitezkeen berdin. Elena Touyarou

Pianojolea zahar argal **apaindu** bat zen, aurpegi estu luzea zuena, eta leiar lodiko betaurrekoak erabiltzen zituena. Josu Zabaleta

Belarri **apainduko** gingilean hazka egin zuen, bere erantzunak zer ondorio ekar zezakeen neurtu nahi antzean. Aingeru Epaltza

Liburu **apaindu** guziak ikusten ahalko dira helduden larunbatetik aintzina, zortzi egunez segidan, irailaren 8-tik 15-erat beraz, Donibane Lohizuneko tenisgune estalian. Herria

Behi laster, zezenketa, dantzaldi, kantu, soinu, dantza, pilota partida, karro **apaindu** eta beste, denetarik izaiten da! Herria

Nerabezarora iritsi zenean, bere lehenbiziko bizarra kutxatila **apaindu** batean gorde ondoren, bere inguruan begiratzen hasi zen. Juan Garzia

Horman erantsitako alga zerrenda **apaindu** luzeei gatza eta belargaizto usaina isurarazten zien. Anton Garikano

Kaiola bat; horrexetan nintzen, kaiola poliki **apaindu** batean. Aingeru Epaltza

Etxekoandreak gelatxo txiki, estu, oso **apaindu** bat erakutsi zien, barrenean, errezel gorri batez ezkutaturik, ohe bat zuela. Josu Zabaleta

Sabaian, kasetoi lan luze urreztatu eta guztiz **apaindu** batek ertza ematen zion ispilu karratu eskerga bati. Karlos Zabala

4 ***karro apaindu*** *ipar*

Hendaian, giro alegera batean iragan da joanden larunbatean **karro** apainduen uztaileko ibilaldia. Herria

Eguerdi irian, zortzi **karro** apainduk egin dute beren ibilaldia karrika nagusian gaindi. Herria

Lapurtarren Biltzarrean, igandean, **karro** apainduek molde umoretsu batean bainan fermuki salatzen zuten gaietarik bat zen gure lurraren bilakaera. Herria

Eskulan erakusketa eder bat eta hamabost **karro** apaindu, Baztango herri bakoitxak berea. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apaindu bat (4); **apaindu batean** (4); **apaindu behar** (6); **apaindu bere** (3); **apaindu dituzte** (3); **apaindu egin** (3); **apaindu eta beste** (3); **apaindu gabe** (3); **apaindu nahi izan** (3); **apaindu ohi** (3); **apaindu zituzten** (3); **apaindu zuen** (9); **apaindu zuten** (9); **ilea apaindu** (3); **liburu apaindu** (3); **lorez apaindu** (3); **polliki apaindu** (4)

antzoki gisa apaindua (6); **apaindua aurkitzen du** (3); **apaindua den** (3); **apaindua izanen da** (6); **apaindua zegoen** (9); **apaindua zen** (7); **batez apaindua** (18); **bezala apaindua** (3); **ederki apaindua** (9); **ederrez apaindua** (5); **garbitua eta apaindua** (3); **gisa apaindua izanen** (6); **gorriz apaindua** (4); **harribitxiz apaindua** (8); **lorez apaindua** (7); **oso apaindua** (4); **polliki apaindua** (5); **zegoen apaindua** (3)

apainduak zeuden (3); **apainduak ziren** (4); **apainduak zituzten** (3); **gain gainetik apainduak** (3); **karro apainduak** (5); **ongi apainduak** (5)

berina apainduen lehiaketa (3); **karro apainduen ibilaldia** (3)

apaindurik ageri (3); **apaindurik zegoen** (3); **apaindurik zeuden** (3); **argazkiz apaindurik** (3); **batez apaindurik** (8); **ederki apaindurik** (5)

batez apainduriko (3); **lorez apainduriko** (3)

apainduta zegoen (5)

apaindutako lastozko kapela (4); **batez apaindutako** (3); **handiz apaindutako** (3)

batez apainduz (3)

elizaren apaintzeko (3)

apaintzen ari dira (3); **apaintzen da** (3); **apaintzen dituen** (3); **apaintzen dituzte** (6); **apaintzen du** (4); **apaintzen dute** (8); **apaintzen duten** (5); **apaintzen zen** (5); **apaintzen zion** (3); **apaintzen ziren** (5); **apaintzen zituen** (3); **apaintzen zituzten** (9); **apaintzen zuen** (12); **apaintzen zuten** (9); **batek apaintzen** (4); **batez apaintzen** (3); **burua apaintzen** (4); **hormak apaintzen** (3); **ilea apaintzen** (3)

---

apaindura **1** *iz* apaintzen duen gauza.

Madarikazioka eta izerditan herritik kanporagotxoko fabrika antzeko etxe handi eta **apaindura** gutxiko batera eraman zituen: klandestinoen etxea zen. Josu Zabaleta

Apaindura oro kaltegarri du; estalgarri oro itsusgarri: soilik laxotasunari emana denean dago zinez zoragarri. Jon Muñoz

Bertute guztien zaintzaile eta **apaindura** den apaltasuna, eskubide osoz egin zen Jainkoaren gizonaren jabe. Askoren artean

Ez zuen inolako makillajerik behar, ezta **apaindurarik** ere. Jon Muñoz

Nola ez nintzen liluraturik geratuko, bada, baldin, so eta so egiten nion arren, ez menbro itsusirik estalkirik behar zuenik eta ez gorputz-zati marketsik bernizadurarik eta **apaindurarik** behar zuenik ikusi banion. Joan Mari Irigoien

Ez arduratu kanpoko edertasunaz: orrazkera, urrezko bitxi eta luxuzko soinekoen **apainduraz**. Elizen arteko biblia

Umila, ordea, deitzen dugu maiz gorritzen dena, bere bizioak aitortzen eta besteen bertuteak aipatzen dituena, denei amore ematen diena, eta, gainera, burua apal dabilena eta bere **apainduraz** axolarik ez duena. Piarres Xarriton

Pentsatu zuten, halaber, naturak ez zituela akatsik gabeak egin, eta gustagarriago bihurtuko zirela baldin eta **apaindurekin** disimulatzen bazituzten beren gabeziak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Etxe berria egitean, arkitektoari dagokio egitura osoaz arduratzea; edertu eta margotu behar duenari, aldiz, **apaindurez** bakarrik arduratzea. Elizen arteko biblia

Zoritxarrekoa Samaria, efraimdar mozkorren koroa harroxko, haran joriaren gainean garai zauden **apaindurazko** lore-sorta zimel, ardozaleen hiri! Elizen arteko biblia

Halako **apaindurak** zituen zaldi bat ez zitekeen edozeinena izan. Fernando Rey

Aaronen ondorengo guztiak **apaindura** ederrez azaltzen ziren Israelgo batzar osoaren aurrean, Jaunarentzako opariak eskuetan zituztela. Elizen arteko biblia

Gangak dekorazio aberatsa zuen eta, denboraren joanaz jadanik leunduta ageri ziren haren **apaindura** urreztatuekin, argi puntuz izartuta zegoela irudi zuen. Karlos Zabala

Jainkoaren legeez ari denean, hitz bihurri eta itzulinguruak, **apaindura** hutsalak, nabarmenkeriak eta jakingurak beren burua galdu nahi dutenei uzten dizkie, eta mamia bilatzen du eta ez azala, muina eta ez oskola. Askoren artean

Apaindura huts besterik ez dira guziak. Patziku Perurena

Azalik eta batere bestelako **apaindurarik** gabea. Hasier Etxeberria

Iruditzen zaie dantzarien lohadar bigunak mugitzen ikusten dituztela eta zitararen kantu gardena eta kordelen hotsa entzuten eta ekitaldi bera eta eszenako **apaindura** ezberdinak distiratzen direla. Xabier Amuriza

Badakit, guztira, **apaindura** gutxiko gela iruditzen zitzaidala, hotza eta tristea. Ramon Saizarbitoria

Jauregiak berak ere, Byronen tximino armiarma-lanparetatik zintzilikatuekin eta altzari napolitar **apainduraz** beteegien artean hara eta hona dabiltzan indioilarrekin, badu denboraz kanpokoaren eta dekadentziaren arteko nahastura doi hori. Oskar Arana

2 (hitz elkartuetan)

Festa-**apaindurak** argi dirdaitsuz edertzen ditu denak, eta bakearen bedeinkapenak bildutako guztien bihotzak alaitzen. Askoren artean

Jaiki zen Judit eta soineko eta emakume-**apaindura** guztiak jantzi zituen. Elizen arteko biblia

Soilagoa eta zehatzagoa, hizkuntz **apaindurarik** eta literatur kutsurik gabea. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apaindura gutxiko** (4); **apaindura guztiak** (3); **apaindura xumearen luxua** (3); **zaintzaile eta apaindura** (3); **zuen apaindura** (3)
> **apaindurarik gabe** (5); **apaindurarik gabea** (4)

---

apaindurazale *(orobat **apaindura-zale**) izond* apainduren zalea dena. ik **apaindura** 2.

-Horra emakume ederrak, zein **apaindurazaleak** diren beren soineko argiekin! Patxi Zubizarreta

Apaindura-zale amorratua zen, eta deus ez zuen gorrotoago leinu nobleko ez diren neskak ezaugarritzen dituen burutea baino. Juan Garzia

---

apainduria *iz* apaindura.

Haien **apainduriak** ez ziren aldi honetan ohi diren horietakoak, Tiroko purpurak eta hainbeste modutara sufritua den zetak garesti haziak alegia, lera-belar berdeen hostoz eginak baizik, huntzaz josita. Patxi Ezkiaga

Lege-liburua eman zien erbesteratuei eta Jaunaren aginduak ez ahazteko eskatu eta beren pentsaera ez okertzeko, erbestean urrezko eta zilarrezko irudiak eta beraiek inguratzen zituzten **apainduriak** ikustean. Elizen arteko biblia

Tenpluaren aurrealdean zeuden urrezko **apainduria** guztiak ere eraman zituen. Elizen arteko biblia

Bat-batean jaiki zen mahaitik eta elizara joan zen; begiratu zuen ea aldarearen **apainduria** hondatua edo zerbaiten faltan ote zegoen, eta aldare-aurrealdeko txilintxoak moztuak eta kenduak ikusi zituen. Askoren artean

Bere zerbitzariaren bidez Jaunak egin nahi izan zuen guztia kontatzeko orduan, estilo bitxi-apaina bazter uztea erabaki dut, hizkera sinplea irakurlearen debozioari onuragarriago gertatzen zaiolakoan **apainduriaz** jantzia baino. Askoren artean

Apainduria handiko lorategi batean ere, non hobeto artearen edo ezkiaren gerizpean baino? J.M. Olaizola "Txiliku"

---

apaingabe *izond* apaindurarik ez duena.

Gauzak diren bezala deskribatu behar badira, aitortu beharko dugu obraren erdia edo gehiago aski forma ahul eta **apaingabez** moldatua dela; horrek aise justifikatzen du Cervantesi bere arerioek leporatzen zioten harako hizkuntza xume harena. Juan Garzia

---

apaingailu *iz* apaingarria.

Aapaingailu, zapi, ontzi sakratu eta aldarearen zerbitzurako behar diren beste gauza asko bidali zituen, elizjantzi preziatu eta dotore askorekin batera. Askoren artean

Urrez landuak ziren zure bitxi eta **apaingailuak**, sortu zintzuten egun berean prestatuak. Elizen arteko biblia

Heziketa urrezko **apaingailu** da zuhurrarentzat, eskumuturrekoa besoan bezala. Elizen arteko biblia

Izarren distirak edertzen du zerua, argizko **apaingailu** Jaunaren goialdeetan. Elizen arteko biblia

Diseinu eskandinaviarreko platerak, plater hegalarien itxurako hautsontziak, puf biribilak, **apaingailu** psikodelikoez horniturikoz tapizak. Joxan Elosegi

Hala ez egitera, gure iritziz, biziagoa izango da ustez hobetu nahi den artea kanpoko **apaingailuez** itotzeko arriskua. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Pailarda baten musua, **apaingailuzko** ore finez ederreztatua, ez zaio estaltzen duenari itsusiago, ene egintza ene hitz guztiz margo-mozorrotuokin baino. Juan Garzia

---

apaingarri **1** *iz* apaintzen duen gauza. ik **apaingailu**.

Mundua gizaki arruntarentzat zela argudiatuko zuen; artea **apaingarri** bat besterik ez dela, giza bizitzaren gailurrean ezarria. Anton Garikano

Zeren eta aldarea zurezko kutxa handi bat bezalakoa baita, kanpoan mila **apaingarri** dituena eta beheko aldean estalkirik ez duena. Joan Mari Irigoien

Mahai gainean eta piano bertikalaren gainean zeuden, axolagabe atonduta, **apaingarri** zenbait. Mirentxu Larrañaga

Eliza sagaratu ondoren, artzapezpiku jaunak aldareko **apaingarri** guztiak eskuzabal utzi zizkien anaiei. Askoren artean

Itsatsi katetxoen muturrak bi urre-harizko **apaingarriei**, eta lotu efodaren sorbalda-babeskiei aurrealdetik. Elizen arteko biblia

Musikak ez du soberako **apaingarririk** behar. Joan Mari Irigoien

Estakuru hura eta **apaingarri** hura nik asmaturikako gezurrak ziren, azken finean, eta gezur haiekin estali nahi izan nuen neure asmo ilunen doilorkeria. Joan Mari Irigoien

Gauza hori lepotik zintzilik eramatea ez zitzaion nire aitari asko egokitzen, ez baita hemengo gizonon kulturakoa bitxiak eta **apaingarriak** erabiltzea. Ramon Saizarbitoria

Haien lanabesak, **apaingarriak** eta bestelako gauzak harri-hezurrezkoak zituan gehienbat. Joan Mari Irigoien

Atea zabaldu, eta bere harridurak goia jo zuen han bere arropak eta **apaingarriak** ikusi zituenean! Patxi Zubizarreta

Zuetako nork izan ditzake, izan ere, etxeak teilaz egindako estalkien gainean, edota kolomak edo frontoien **apaingarriak**? Santiago Iruretagoiena

Baina, hau hala bazen eta hala zen, nola estima zezakeen orduan aitak osaba, baldin bufoi gisa ez bazen, eta baldin tarteka organizatzen zituen festetan **apaingarri** gisa erabiltzeko ez bazen? Joan Mari Irigoien

Begiz jo zuen honek neska, oso atsegina gertatu baitzitzaion; behar zituen **apaingarriak** eta janaria eskuratu zizkion berehala. Elizen arteko biblia

Bi zutabeen **apaingarriak** ere berdinak ziren. Elizen arteko biblia

Gorroto ditut gabonetako **apaingarriak**, esan dio arrebak, gaia amaitutzat eman nahian. Harkaitz Cano

Ondorioz, handik aurrera, pertsiarrek estatua asko jarri zituzten beren arkitrabe eta **apaingarriei** eusten. Santiago Iruretagoiena

Harrizko besaulki bat zegoen, beltza eta **apaingarririk** gabea. Agustin Otsoa

Gogoko nuen haren ikastaldien zuzen-zorroztasun **apaingarririk** gabea. Juan Garzia

Hasteko, erran dizut lehenago ezen gure jauregia **apaingarriz** eta edergarriz josi zutela. Joan Mari Irigoien

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ohoratu egin zuen **apaingarri** ederrez, soingaineko zoragarria jantzarazi zion. Elizen arteko biblia

Ohore-ikur, goi-mailako lan, begien atsegingarri, **apaingarri** paregabea. Elizen arteko biblia

Beren bizieran nahiz ohituretan ez dute kristau erlijioari dagokionik ezer, kristau izenaren **apaingarri** soila ez bada. Askoren artean

Etxe zatar batean zaudela uste duzunean, eskultura batek, fresko batek, **apaingarri** hutsal eta dotore batek ohartarazten dizu jauregi batean zaudela. Koldo Izagirre

Gorteko jaun-andereek oro beren erregaliak ekarri zituzten: zeinek harribitxiak, marfilezko **apaingarriak**, zeinek aspaldiko artistek egin pintura miresgarriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Berriro ere haitzuloan sartu, eta hilkutxetako harribitxi, errubi, perla eta bestelako **apaingarriak** bildu nituen. Patxi Zubizarreta

Etxerako **apaingarriak** bakarrik, ingurua dotoretu nahiko bazenu bezala: zure ingurua bai, baina ez zeure burua. Lourdes Oñederra

Elizetarako **apaingarriak** ere erosten zituen, eta apaiz pobreei bidaltzen zizkien ezkutuan. Askoren artean

Sekulako **apaingarriak** zeuden han, idunekoak, eskumuturreko eskergak, paparreko orratz erraldoiak, bitxi basatiak. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan)

Ate guztiak igaro zituen, erregearen aurrez aurre gelditu arte. erregea bere aulkian eseria zegoen, errege-**apaingarri** guztiak jantzirik, urrez eta harribitxiz estalia. Elizen arteko biblia

4 (izenondo gisa) apaintzen duena.

Elementu **apaingarria**, estetizista da pintura tradizionalean. Bernardo Atxaga

Luzea da, lerdena eta luma **apaingarriak** ditu. Berria - Gaiak

Aldaketa **apaingarria** da, militarren porrot tristea ezkutatzeko. Berria - Mundua

Barbara Allenen historia kontatzen duten baladak ugariak dira eta gaur eguneraino iritsi da haien sona, lanbrotsu zenbaitetan, poesia **apaingarriaren** kutsuarekin gehienetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hainbeste asmo, amets, ekintza, zalaparta, atsegin eta atsekaberen abiaburu **apaingarria** izan duguna! Piarres Xarriton

Grafiko funtzionalak -ez soilik **apaingarriak**-. Askoren artean

Une hura garbi-garbi diat, begien aurrean ditiat etxeko argiak, tabako ingelesaren usain lodia aditzen diat, altzariak ikusten ditiat, sortaldeko tapizez estalitako sofa-ohea, paretetako zaldizkoen irudi **apaingarriak**. Xabier Olarra

Paper gorriz estalita zituen hormak, zurezko arasa baten pareraino-edo, zeinean paratu baitzituen hainbat txarro **apaingarri**, etxean eskuz landutakoak. Mirentxu Larrañaga

Han jarraitzen ote zuen, edo, beraren burua arazteko, iraganeko bizitzako arrasto oro deuseztatzeko ahaleginen batean, irudi **apaingarri** kolore anitzeko hura ezabatzeko prozedura mingarritik igaro ote zen. Oskar Arana

Barrura egin zuen, mutiri, urrezko katea mantalaren gainean hoska, kapelarik gabe, adatsa modan orraztua, korapilo **apaingarri** bat zintzurrean, korapilo farfailazkoa, merkatu nagusiko erregina pinpirinetako bat bilakatzen zuena. Karlos Zabala

Zetazko soineko berri bat zuen jantzia, bere bitxi guztiak **apaingarri**, eta irribarre lotsagabea ezpainetan. Karlos Zabala

Aza kizkurrak, beren hosto handiekin brontzezko ontzi mahai-**apaingarriak** ziruditenak. Karlos Zabala

5 (adizlagun gisa)

Hark jaso zuen, badia babesteko, egun **apaingarri** dagoen dorrea. Koldo Izagirre

Mahatsondoaren adar, mordo eta hostoz egindako girlandak **apaingarri** ageri ziren, berde leun baten gainean margoturik. Karlos Zabala

Lisak mutil gaztearen zulo beltzaren ondoan egiten zuen lo, gela txiki batean, zeinari argitu ederra eman baitzion leku guztietan muselinazko errezelak **apaingarri** ipinita. Karlos Zabala

6 ***landare apaingarri***

Gizona etxera hurbildu zen albo batetik eta, haren ondoondora iritsi zenean, horma ondotik abiatu zen -hortentsia handiak bezalako **landare apaingarriek** uzten zioten neurrian- etxeko sarrera nagusi aldera. Aitor Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **apaingarri bat** (7); **apaingarri gisa** (9); **apaingarri guztiak** (6); **apaingarri hutsa** (3); **apaingarri moduan** (3); **apaingarri soila** (3); **apaingarri zenbait** (3); **baten apaingarri** (3); **edo apaingarri** (3); **zituen apaingarri** (5)
>
> **apaingarria baino ez** (3); **apaingarria da** (4)
>
> **apaingarriak ere** (4); **irudi apaingarriak** (3); **zituen apaingarriak** (3)
>
> **apaingarririk ez** (3); **apaingarririk gabe** (8); **apaingarririk gabea** (7); **apaingarririk gabeko** (5); **inolako apaingarririk** (5); **soberako apaingarririk** (4)

---

apaingarridun *izond* apaingarriak dituena.

Gela hartan bazen: horma-ordulari handi bat, kaiola inkrustazioz beteta zuena, Inperi estiloko antzinako altzariak, zenbait ispilu **apaingarridun** eta Valentziako hiriaren XVII. mende hasierako plano bat. Josu Zabaleta

Tarta zoragarri bat, izpilikuaren kolorekoa, molde **apaingarridunean** egina eta gainean nire izena kremarekin idatzia. Fernando Rey

Aroztegian aritzen zen forja-lanean bere bost semeekin, ezpata ederrak egiten, urrezko **apaingarridunak**, aho-zorrotzak, hautsezinak. Fernando Rey

---

apaingarritasun *iz* apaingarria denaren nolakotasuna.

Berehala konturatuko gara lehen-lehenengo asmakizuna premiaren eraginez sortu zela: jantziaz ari naiz; ehunak tresna bidez antolatu eta irazkiak eta bilbeak jarraian elkartuz egindako asmakizunarekin gorputzak estaldura batekin babesteaz gainera, jantziak **apaingarritasuna** gehitzen dio txukuntasunari. Santiago Iruretagoiena

---

apaingela *iz* pertsonen apainketarako erabiltzen gela.

Gelazainari manatu nion nire logelan egon zedin ikustaldi horren denbora guztian, handik, dakizun bezala, nire **apaingelan** gertatzen den guztia ikusten baita, eta hantxe hartu nuen Prévan. Jon Muñoz

Sartu zen, beraz, emaztea bere **apaingelan**, neska gazte bat zerbitzari zuela. Felipe Juaristi

Ohetik jaiki eta bere ibilera nagiekin biluzik **apaingelara** zihoanean ere desberdina iruditu zitzaidan, helduagoa, eginagoa. Joxean Agirre

Inongo emakumek, edozein luzeratakoa izanda ere, ezin izango luke **apaingela** eta logela hoberik lortu. *Filosofia* ***Apaingelan*** Saderen obrarik distiratsuena da, adituen ustez. Julen Gabiria

---

apainkera *iz* apaintzeko era.

Emango nuke biak sentitzen direla harro, nor bere **apainkerarekin**. Jon Arretxe

---

apainkeria *iz* apaintasuna, gaitzesgarritzat hartua.

Elizak ondasunak nahi zituen, **apainkeria** eta dotoretasuna. J.M. Olaizola "Txiliku"

Salbu mantentzeko: ez da **apainkeria**, ezta zahartzeko beldurra ere; den bezalaxe iraun nahi du, ez bestela. Monika Etxebarria

Zinez diot, duela 50 urteko eliz ezkontza ximple eta eskeptiko batean baino mila bider **apainkeria**, sineskeria eta jatorkeria zirinagoa nabaritu dut halakoen familietan. Patziku Perurena

Zurikerietan jarduten zitzaizkion inguruko kide haiek barre egiten zioten gibeletik, baroi gaztearen bizkar trufan aritzen ziren, ikusita nolako **apainkeria** zaharkituarekin adierazten zituen esaldiak. neska gazte ausart eta lotsagabe bat, beltzez jantzia hura ere, baina **apainkeria** nahasgarri eta nabarmen batez jantzia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zahartzaroa jakintsua dela pentsatzen du, gaztaroa ederra, burua mugitzen du nolabaiteko **apainkeriaz** : ongi asko daki ederra dela oraindik, miresgarria dela zein ongi dagoen bere adinerako, bere larruazal belztuarekin eta bere gorputz mehearekin limurtzeko gauza dela oraindik. Monika Etxebarria

---

apainketa **1** *iz* apaintze lana.

Hori eszenatokian islatzeko margolan batzuk ezartzea **apainketa** hutsa litzatekeela iritzita, nahiago izan dugu bi adiskideen arteko topaketa musikaren bitartez islatu. Berria - Kultura

Eraikinaren barnealdeko **apainketa** , tamalgarria, oro har: ukuiluetan argi fluoreszenteak, zoruan hormigoia eta paretan goldea, area, alferra, sega, laia eta igitaiak. Edorta Agirre

Nire iritzirako, ordea, faza gehiegi du **apainketak** , ahalegin nostalgiko bat da, iraganeko Ingalaterra Berriaren giroa. Oskar Arana

Nire protesta, dena dela, ahula izan zen, etxearen **apainketaz** ez nintzelako sekulan arduratu eta, ondorioz, ezer gutxi nuelako esateko, emazteak ondotxo gogorarazi zidan bezala. Iban Zaldua

Nekez aurkituko luke lege unibertsal bat, uharte desertuan galdutako gizaki bakarrak **apainketan** jardun behar duela aginduko duena. Jenaro Garate

Garbiketa nahiz **apainketarako** saltzen zizkioten produktuak. Aingeru Epaltza

Bainugelako bero lasaigarria gozoki lurrinduta zeukaten lababoaren ondoko apaletan paratutako krema, esne hidratagarri, jel-xaboi, ile-egokitzaile, laka, eta **apainketarekin** zerikusia zuten hainbat artikuluk, tapoiak gora eta behera begira zituztela. Iñaki Zabaleta

McGonagall andereñoa eta Flitwick maisua lanpetuta zebiltzan Gabonetako **apainketekin** . Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan)

Arrangoitzen, martxoaren 26tik 28ra, "Xaharki makilak" izeneko xaharki eta **apainketa** feria. Herria

Altzari, besaulki eta dibanak, babes-oihalak kendurik, berpiztu egiten ziren, eta baita paretetako erretratuak ere, eta burdinazko argi-mutil eskergak, bitrinetako eta lurreko suaren arrapaleko **apainketa** -gauzak. Xabier Olarra

· Besteak beste erakusketa bat etxegintzari buruz bai eta etxe-**apainketari** buruz. Herria

Senpereko herriak ere laguntza ekarri dio, hala nola herri- **apainketarako** behar zituen lore guziak erosiz. Herria

Marisak 34 urte daramatza ile- **apainketa** irakasle eta bere txokoan, atzo behintzat, neskak besterik ez ziren ikusten. Berria - Euskal Herria

3 ***erakusleiho apainketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Enplegu eta Garapen Sailak merkatariei zuzendutako ikastaro bi antolatu ditu azaroan egiteko: **erakusleiho-apainketa** eta paketeria. ETC-prentsa

Zehatzago hitz egin du: "Marka handiek kotoi metro bat bizpahiru eurotan lor dezakete, baina prezioaren barruan gauza asko daude sartuta: oihala: jostunaren soldata, eta jostun hori agian haur esplotatu bat da: marketin arduradunaren soldata: **erakusleiho apainketako** plan guztia: etekinak... ETC-prentsa

4 ***ile-apainketa***

Marisak 34 urte daramatza **ile-apainketa** irakasle eta bere txokoan, atzo behintzat, neskak besterik ez ziren ikusten. Berria - Euskal Herria

---

apainki *adlag* apaintasunez.

Automobil **apainki** taxutu haietako batean lau laguneko mutil gazte talde bat zihoan, zeinen bihotzak, une hartan, nagusi zen galizismoaren maila baino askoz gorago zeudela ematen baitzuen; oso alai zihoazen lau gazte haiek, joan ere. Irene Aldasoro

---

apainkiro *adlag* apainki, apaintasunez.

Itsaso barreneko bapore-untzi batek ke adar luzea marraztu zuen airean, eta han geratu zen **apainkiro** bihurritu eta kiribiltzen, aireak gasa fin baten antzera gauzei eutsi eta bere sarean goxoki gordetzen zituelarik, soilik alde batera eta bestera emeki eraginez. Anton Garikano

---

apainmahai ik **apain 5**.

---

apaintasun *iz* apaina denaren nolakotasuna.

Elizkizuna bera oro kartsutasun eta **apaintasun** izan da, kantuetarik haste, hauen gidari onekin. Herria

Liburuetan Jaunaren Hitza bilatu behar dela irakasten zuen eta ez balio materiala, espirituaren eraikuntza eta ez **apaintasuna** . Askoren artean

Apaintasuna eta dotoretasuna zaintzen zituen amak bereziki. Joxan Elosegi

---

apaintzaile *(orobat **apaintzale** g.er. eta **apantzaile** g.er.)* **1** *iz* apaintzen duena.

Chestertonen (hainbat misterio dotoreren asmatzaile eta **apaintzaile** horren) eta Leibniz gorte-kontseilariaren (zeinak aurrez ezarririko harmonia asmatu baitzuen) eragin nabariz, agian noizbait idatziko dudan argumentu hau irudikatu dut, dagoeneko nolabait justifikatzen nauena, alferrikako arratsaldeetan. Juan Garzia

Sei baratzezain dira bazterren **apaintzaleak** . Herria

2 (hitz elkartuetan)

Eta gure alorrak oraino zenbait ahago tzar, zalke edo kardu badu ere, ez girea hor aitzina segitzeko, garbi eta **apaintzale** lanean! Herria

Lau hego izaten dituzte, nerbio txikiz egindako egituran, arotz baten ordez altzari-**apaintzaile** batek egindako gurtetxe afiligranatua balitz bezala, gorputzarekiko proportzioan handiak bi aurrekoak eta txikiagoak bigarren parekoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eskerrak hartze dituzte Bestaberri, Otaba igandetan hoin ederki ibili diren gaztek bainan ere, kantari, aldare **apaintzale** , berdura hedatzaile, etxetako mihise edo besta egun horietan lan egin duten guzier. Herria

Erakusleiho- **apaintzaile** ohia. Oskar Arana

Ez zen gainera Amikuzeko moldea Zalgizek bere izkribuetarako hautatua, ezta nik hobekienik ezagutzen nuen bertzea ere: Iruñeko karriketako larru- **apaintzaile** eta zapataginena, Migel Mailuk bizi artean erabili eta nik haren ahotik ikasi nuena. Aingeru Epaltza

Jauregian neskato ote zegoen Antsa larru- **apantzailearen** alaba? Aingeru Epaltza

"Frantxa bezain sugea", "frantxakumea bezain zizarea", adituko zuen maiz gure aitatxik, larru **apantzaileen** karrikan. Aingeru Epaltza

Liburu axal **apaintzaleen** lehiaketaren karietarat muntatua. Herria

LIBURU AZAL **APAINTZALEEKIN** . Herria

3 ***ile-apaintzaile*** *(**28** agerraldi, **16** liburu eta **5** artikulutan orobat **ileapaintzaile** **8** agerraldi, **6** liburutan) iz*

Ile-apaintzailea naiz ofizioz. Itxaro Borda

Balizko **ile-apaintzaile** lanbide horretan. Joxan Elosegi

Autoak konpontzen motorrak konponduz ikasten dela, eta **ile-apaintzaile** izaten, ilea moztuz. Ana Urkiza

Larunbatero, ilea labanaz txukuntzen zioten, lepoa zuri-zuri izateko, Deux-Ecus kaleko **ile apaintzaile** batenean. Karlos Zabala

Xanpu koloratzaile bat aholkatzen dit **ile-apaintzaileak**. Eskarne Mujika

Ile zuri batzuk han eta hemen, **ileapaintzaileak** noizean behin ezkutatzen dizkionak. Paddy Rekalde

Gustavek, **ile-apaintzaileak,** manikurako lau langilerekin, horiz margoturiko eraikin berri-berri baten lehen solairuan du egoitza. Monika Etxebarria

Agertokian, **ile-apaintzaile** gay arraitsu batek bi bezerori egiten die kasu, bata beltza, bestea zuria. Oskar Arana

Sidney **ile-apaintzailea** zorigaiztoko kartazala irekitzen ari da eta ugazabaren ultimatuma ozen irakurtzen. Oskar Arana

Atzera **ileapaintzaile** lanetan hasi zen. Pello Lizarralde

4 *erakusleiho apaintzaile*

Handik bi urtera, goraxeagoko postu batera igorik zen, **erakusleiho apaintzailearen** laguntzaile izendatu baitzuten, eta, zalantzarik gabe, hantxe jarraituko zukeen Bette (ahoskaturik, bet) Dombrowski-rekiko ezkontza gertagaitza gertatu izan ez balitz. Oskar Arana

5 *larru-apaintzaile iz* larru-ontzailea.

Larru-apaintzaileek Nabarreriako jendegunean zuten beren karrika, San Martin ospitalearen eta San Tirso elizaren artean. Aingeru Epaltza

Menderen mendetan bere arbaso **larru-apaintzaileek** Argaren ertzetan bildu nekearen heinekoa zirudien aitatxik urari zion gorrotoak. Aingeru Epaltza

---

apaintzale ik **apaintzaile**.

---

apaintze 1 *iz* apain jartzea, itxura hobetzen duten gauzez hornitzea.

Hainbeste diru gastatu zuen lurjabeak **apaintze** horretan, ezen ez baitzitzaion jateko ere geratu. Jose Morales

Nonbait jarri ondoan, haste **apaintzeak** eta beste lanak, hala nola botoin zenbaiten segurtatzea edo berriz ezartzea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Jakinduriaz arduratuta bizi diren gazteek uko egin beharko diote gozamen sexual orori, tripa-festei, gorputza gehiegi zaintze eta **apaintzeari**, jolaserako zaletasun hutsalari, loaren astunari eta alferkeriari. Imanol Unzurrunzaga

Etxe ingurutako aparkaleku **apaintze** moldatze bat beharko dute. Herria

Geroari buruz haatik, batzu: alde batetik besta hori ainitz gostatzen dela, beharbada soberaxko, bestetik karro **apaintze** saila kudeatzen duena ez gaztetzen ari, diola holako lana ez duela orobat hain luzaz egiten ahalko. Herria

Herri hortako lantegi guziek beren ekoizpenak berek egiten dituzte edo janari, edo beztitze, edo etxe **apaintze** sailetan eta nahi dute jendeari idekiak izan. Herria

Ordu hetan familia horrek egiten zituen eliza artatze, zeinu joite, ilharri **apaintze**, zapataingoko ofizioa atxikiz. Herria

Fikzioak gogaitu samarra nauka aspaldion, aitortu dudanez, baina hortik ihesi ez nuke erori nahi neure buruaren aipatze-**apaintze** obsesibo batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Arratsalde huraxe apartatua zuten, gutiziazko **apaintze**-lanetarako eta solasean aritzeko. Mirentxu Larrañaga

2 *apaintze mahai* mahai itxurako altzari ispiluduna, orrazteko eta makillatzeko erabiltzen dena.

Apaintze-mahai ispiludunak leku berria hartu zuen indiar familia musulman baten gela batean: berehala estali zuten, beren artearen arabera. Joxan Elosegi

Lautrecek beste bi koadrotan margotu zuen Madame Poupoule prostituta ageri da obra honetan, **apaintze-mahaiaren** aurrean jesarrita. Berria - Kultura

Mutikoa ohean zegoen, armairu garaiez eta **apaintze-mahaiez** inguraturik. Lopez de Arana

Apaintze-mahaira joan eta Kleenex bat eta bekainetarako lapitza hartu ditu idazteko. Xabier Paya

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apaintze mahai** (3); **apaintze mahaiaren aurrean** (3); **apaintze mahaiko** (4); **apaintze mahaira** (3)

---

apairu *iz ipar* otordua, oturuntza.

Huna **apairua** zer izanen den: salda, piperrada xauxixekin, ahate ixterrak baratzekariekin, gasna, bixkotx eta izozkia, kafea ondokoarekin, arnoa barne. Herria

Aratsean biziki jende gutiago izan da, bainan orotarat 800 bat **apairu** zerbitzatu dira. Herria

3 egunez, bi mintzaldi, musikaldi bat, pilota partida eta **apairua** bertsulari batzuekin, Eskual Etxean, eliza batean eta Cavalerie trinketean. Herria

Helduentzat **apairua** 100 liberetan da (legatza moletan, behiki kosteleta, entselada, gasna, izozkia, kafe ta patxarana), haurrentzat aldiz 35 liberetan. Herria

Apairuetaz baliatzen zen bakoitza nahi zuenaz zerbait erreteko. Piarres Aintziart

Otordu eta **apairuak**, ahal bezala berek egin eta berek jan. Jokin Urain

Ez du gustu handirik baina beroa da, eta badu zenbait egun ez dudala ez gosaririk, ez **apairurik**, ez deus berorik hartu goxoan jarririk. Filipe Bidart

Santiago Matamoros harrigarria agurturik, plaza zabalean harrizko aulki bat, jin bezala, hautaturik, **apairu** ederxkoa egiten dut, Errioxako xoko honen goxotasunari dagokiona. Piarres Aintziart

Arratsalde erditsutan etortzen zen eguneko azken **apairua**. Eneko Bidegain

Hemen Gurutze Gorriko infirmiersa andana handi batek ongietorri egiten digu: **apairu** beroa eta ontsa prestatua, kafea, arno xorta bat ere. Marzel Etxehandi

Apairua arina zen, arina, fraide bati doakiona, eta medikuek ere artamendatzen dutena, gantzarik bildu nahi ez duenari. Marzel Etxehandi

Bazirudien gure kristau fede zaharrari eratxiki zitzaiola erlijio berri bat; Joana Arkekoa iduriko bere saindu propioekin, bere gerlari ohi medailadunen prozesioekin, bere gerlako martirien xingola, bandera eta oroitarriekin, bere Jondoni Martinetako meza nagusi, frantses prediku, soinu, kantu, espantu eta **apairu** handi guztiekin. Piarres Xarriton

Ez zela, gehienetan ohi den bezala, **apairurik** eskainiko baina familiako eta ahaide hurbilenek kafea elkarrekin hartuko genuela, eliza saihetseko ostatuan. Daniel Landart

Aipatu zuen elgarrekin **apairu** ttipi baten egitea bakotxak bertzearenetik hartuz: nik Carmenek eman ogi eta gasna banuen -untsaraz Luzaideko dorrean behar nuen afaldu eta askaldu! - Arnaldok bere alportxatik hartu zuen bere partea, gaineratekoa ilobarendako zuen. Michel Oronoz

Apairu anaikorra, baina biziki laburra. Marzel Etxehandi

Behin betikotz baztertuak, auzoen artean egin lanaren ondotik heldu ziren **apairu** eta giro onak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Orreagan izan zen batez kondatzen du nola ikusi zituen erlikario batean, Jesusen azken **apairuko** arno xorta bat, ogi purruskak, bai eta... ama birjinaren esne xortak. Xipri Arbelbide

Alegeratasun handienean iragan da eztei-besta guzia, bai Bidarraiko zeremonian, bai Ortzaize-Minaberriko **apairu**-gaualdian. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apairu bat** (8); **apairu baten** (3); **apairu denboran** (3); **apairu on baten** (3); **ostatuan apairu on** (3)

---

apairuño *iz ipar adkor* apairu xumea.

Xoko huntako adinetakoek ohoratu dute urte berria elgarretaratuz **apairuño** baten inguruan. Herria

---

apaiu ik **aparailu 2**.

---

apaiz 1 *iz* erlijio kristauetan, meza emateko esku duen gizonezkoa. ik**apez**; **abade**; **fraide**.

Harlemgo **apaizak** sasoi puntu onean daude. Harkaitz Cano

Eri ote nengoen galdetu zidan **apaizak**. Joxan Elosegi

-**Apaiza** datorrenean, erbia askatu eta nire bila etortzeko esaiozu -agindu dio. Martin Anso

Antzina jainko izugarriren baten izenean sakrifizioak egiten zituzten **apaizen** tankera gogora ekartzen zuen zerbaitek. Alberto Ladron Arana

Bagenekien denok **apaiza** elizako sakristian gazte taldeekin biltzen zela, mutil bizardun eta neska jeansdun eta kangurudunekin, eta haiei guztiei doktrina erakusten ziela, eta ez preseski Ebanjelioaren bidea. Juan Kruz Igerabide

Jauregira **apaiza** bakarrik hurbiltzen zen, urtean behin, neguan, klarionez jauregiko ate-gainean Meltxor, Gaspar eta Baltasarren izenen lehen letrak jartzera agertzen zenean. Xabier Olarra

Ez zuten esaten: desegin ditzagun fedegabeak, gu geu fedegabetzatz har ez gaitzatzen; erakuts diezaiegun **apaizei**, gure ankerkeriaren bidez, eurak bezain fedetsuak garela. Juan Martin Elexpuru

Apaiza Jesusen gorputza kontsagratzen ari zen, ostia gora jasota, enara buruan bueltaka hasi zitzaionean. Pako Aristi

Nire amona Teresaren lehengusua zen don Jose Larrea, **apaiza** eta jatorria Errekarten zuena, haren aita bertan jaioa baitzen, nirea den bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero, komunista eta sozialistek elizak erre, **apaizak** eta mojak giltzapetu, eta errukirik gabe hil zituzten tiroka". Rafa Egiguren

Sala ilunean jendea batetik bestera zebilen: gaizkileak, poliziak, legegizonak, **apaizak** eta kazetariak, suposatzen zuen Molloyk.. Pablo Sastre

Inguruetako **apaizak** amorraturik zeuden: ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren; gizonak ez zituen olioak onartzen, panteista zen. Monika Etxebarria

Hobe genikek oraintxe bertan **apaizen** bat ekarriko bagenu, eta ur bedeinkatuz garbitu ontzia. Edorta Jimenez

Apaiza elizarantz hasten da mantso-mantso. Anjel Lertxundi

Postura zaharrean mintzo zen, **apaizen** gisan. Koldo Izagirre

Gizakia hemendik igarotakoan, **apaiza** aldare alboan bezala geratzen da. Joan Mari Lekuona

Trallesen badago jauregi bat Errege Atalikoek egina, beti hiriko **apaizen** buru denari bizitetxe bezala ematen zaiona. Santiago Iruretagoiena

Jean Etxepare apur bat ezagutzen duena ez da harritzen jende xehearen aipamen hori hemen aurkitzean: Larresoroko irakaspenak hartuak zituzten hango **apaizki** ala jauntxoek gizarteko barne mailak ongi bereizten ikasia baitzuten. Piarres Xarriton

Dogmatiko hutsa zuan, don Julian Azpilgo orduko **apaiza** bezala, eta garrasian eta zigorrean finkatzen zian bere heziketa. Joan Mari Irigoien

Ikastolako ospakizun bat zela uste dut eta **apaizak** tartean zebiltzala. Lander Garro

Lehenengo tribuak bere **apaizentzat** baino ez zuen gorde sekretua, eta berauek euren probetxurako erabili zuten, herri xehea hotzaren menpe bizi zen bitartean. Jon Arretxe

Eskatu al diozu aholkurik inori, **apaizen** bati, esaterako, edo terapeutaren bati? Oskar Arana

Leitzan katekesia ematen ari den **apaiza** etorri zitzaidan lehengoan: - Zuk nola esanen zenuke "soplo vital" euskaraz? Patziku Perurena

Houstonen hildako umearen hiletan, **apaiza** mintzatu zen; Miguel Ángel Blancoz ari garen honetan, neuk hartzen dut egiteko hori. Bernardo Atxaga

Erlijioak ere bezala, bere **apaizak**, bere profetak, bere santuak eta bere handi-mandiak ditu kulturak. Anjel Lertxundi

Labur-labur: Victor Hugori interesatu zaion jendea, artzainak dira, unai edo behizainak, kotxeroak, ostalariak, arrantzaleak, batelerak, soldaduak, guardiak, iheslari politikoak, herrietako **apaizak**, bizarginak..., zein ez? Koldo Izagirre

Bere titulu aristokratikoarengatik ere, Markesek ez zituen maite ez **apaizak** ez nobleak. Koro Navarro

2 (izenondoekin)

On Camillo eta Peppone, **apaiz** demokristaua bata eta alkate komunista bestea, Pinocchiorekin batera, literatura italiarreko pertsonaiarik ezagunenak dira mundu osoko irakurleen artean. Koldo Biguri

Aski zen **apaiz** estimatu bat gotzainak beste herri batera destinatzea salatzaile bat aurkitu beharra izateko. Joseba Zulaika

Popea, berriz, herriko **apaiz** xume bat zen, inperio errusiarrak dauzkan seiehun mila horietako bat. Karlos Zabala

Sakristia usain batek inguratu eta osoki hartu nau eta **apaiz** sotanadunaren irribarre eskasak hoztu. Piarres Aintziart

Abertzaleen esku zeuden, oro har, euskal dantza taldeak, euskaltegiak, eta Elizaren inguruko hainbat eta hainbat jende, **apaiz** "kontzientziatuen" gidaritzapean. Juan Kruz Igerabide

[...] zergatik eta, soil-soilik, zuzendariak elizara sarritan joatera behartzen zituelako eta **apaiz** txarra suertatu zitzaielako. Jose Morales

Entzuidak, **apaiz** adeigabea, aingeru zaindari izango duk ene arreba hi aienez hagokeenean uluka. Juan Garzia

Apaiz alemaniar bat zen, oso predikatzaile ospetsua. Rafa Egiguren

Thomas Hobbes Malmesbury-tik gertu jaio zen, txirotu egin zen **apaiz** anglikano baten etxean. Esteban Antxustegi

Han erretiratuta bizi den **apaiz** protestante batek bere alabaren senargaia aipatu zidan, Virgil, berrogeita hamar urteko gizon bat, ia ume-umetatik itsu izandakoa. Xabier Olarra

Mahai gaineko gurutze itxuraz astuna eskuan hartu eta **apaiz** zuriari jaurtikitzea bururatu zitzaion, deiadarka hastea. Xabier Montoia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Limurkeria hitzak **apaiz** usaina du eta lizunkeriarik gabekoak ere izan daitezke piropoak, izan beharko lukete, aurretik irudimena dutela joan behar baitute, eta ez larruaren grina isuriz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Apaiz-batzarreko kideek gero eta trabes sarriagoak eta handiagoak egiten zituzten eta ikararen eta itxaropenaren gorabehera guztiez gozatzen; behartsuek, berriz (zentzuzkoa edo ezinbestekoa zen bekaizgoz), zir-zart dudarik gabe atsegintsu horretatik bazterturik ikusten zuten beren burua. Juan Garzia

Biltegiaren atarian Azpillaga ibiltzen da hara-hona, lodia, handientsua, bere **apaiz** tankerarekin, mahuka urdin batzuekin eta bere txapelarekin. Koro Navarro

Zerorrek ongi dakizunez, Santutegian baizik esaten ez denak, eta hor ere, bereziki, **apaiz**-bedeinkazioan "Jaunari kontsakraturiko apaizen" ahotik eta barau-egunean **Apaiz** Nagusiarenetik. Xabier Kintana

Beste iraultzak integratu aitzin behar zuen **apaiz**-munduak pixka bat deskantsatu. Piarres Aintziart

Jarrera hau, politikoki zikindu gura ez duen intelektual, literato, sindikalista edo **apaiz** jende askoren aterpe erraza izaten da. Joxe Azurmendi

4 ***apaiz egin***

Jainkoarentzat, bere Aitarentzat, errege-herri eta **apaiz egin** gaituenari, aintza eta agintea menderen mendetan. Amen. Elizen arteko biblia

Gainera esan zidan, **apaiz egin** aurretik, Jainkoak errebelatu ziola, meza bitartean kordea galduko zuela. Askoren artean

Apaizak bakarrik, ez apezpikuak (alta, ez da apezpikurik lehenik **apaiz egin** gabekorik!). Pello Salaburu

Agian, brahmin **apaiz egingo** zen. Gotzon Garate

Nik Ebanjelioa irakurri eta ez dut ikusten emakumeak **apaiz egiteko** eragozpenik. Berria - Gaiak

Apaiz egin aurretik, erizaintza ikasi nuen. Juan Kruz Igerabide

Ameriketan hamar urte **apaiz egin** ditu semeak, eta aitak, salbuespena eginez, tren-geltokiraino joan da, semeari harrera egitea. Joxerra Garzia

Hobeki esan, teologiako bost urteak amaituak ditu eta aurten da **apaiz egitekoa**. Patxi Zubizarreta

-esan zuen mutilak - **Apaiz egin** nahi ninduten, eta artzain izatea erabaki nuen. Xabier Aranburu

5 ***apaiz emakume***

Izei abar huntzez lotuak eskuetan zituztela, eta orkatz baten tatuajea eskuineko ukalondoan, halaxe dantzatzen ziren **apaiz emakumeak** bakanal hauetan. Pello Zabala

6 *apaiz ihardokitzaile* Frantzian, 1789ko Iraultzari buru egin zion apaiza.

Eskualde hartan ez dela neholaz ere apez **ihardokitzailerik** onetsiko, eta, are gutxiago, lehengo eginkizunak bete eta iraultzaren kontrako propaganda egiten duenik. Elena Touyarou

Zurrumurruek ziotenez, auzo herrietan jende parrasta bat atxilotu zuten apez **ihardokitzaileak** sostengatzeagatik. Elena Touyarou

Anartean, dekretu bat izenpetua izan zen, apez **ihardokitzaileei** erbesteratzea agintzen ziena, non ez zuten Guianara, gaizkile arriskutsuenak eramaten zituzten *Outre-mer* deitu zoko urrun hartara deportatuak izan nahi. Elena Touyarou

7 *apaiz-jantzi*

Ehun eta hirurogeigarren urteko zazpigarren hilean, Etxola Jaian, hartu zituen Jonatanek soinean **apaiz-jantziak**. Elizen arteko biblia

Hartu **apaiz-jantziak** eta jantzi Aaroni tunika, mantua, efoda eta bularrekoa, eta lotu efoda xingolaz;. Elizen arteko biblia

Frantzisko Garzia jenerala, berriz, Nafarroako Buruzagi gorena, zetorkion saldukeriaz berantegi jabeturik, **apaiz jantzirik** saiatu zen Lizarratik ihes egiten; baina zentinelak konturatu, eta preso eraman zuten atzera Marotorengana. Txillardegi

Tabako-hauts zirimiri etengabe haiek ziratekeen haren **apaiz-jantzi** zaharrei itxura urdin histu hura ematen zietenak, zeren eta eroritako izpiak astintzeko erabiltzen zuen musuzapi gorria, aste beteko hauts-orbanez belztuta edukirik, beti edukitzen zuen bezala, alfer-alferrik izaten baitzuen. Irene Aldasoro

Bigarren Gerrate Handiaren hasieran, armada alemaniarrak Dunkerke bonbardatu eta Belgikari eraso egin zionean, belgikar askok uste tinko bat omen zeukan, alegia parakaidista naziak **apaiz jantziak** erabiltzen ari zirela aiseago mugitu ahal izateko. Bernardo Atxaga

Gizon bat irten da aldarera **apaiz jantzian**. Anjel Lertxundi

8 *apaiz katoliko*

Irlandako bake prozesuan eskarmentu handiko Alec Reid **apaiz katolikoak** ere fede emaile gisa jardungo du taldean. Berria - Harian

Bekatuaren itzala-ko protagonista, esan bezala, apaiza da hain zuzen, **apaiz katolikoa**. Markos Zapiain

-Zer? Ba zera: ni **apaiz katolikoa** nauzu -Vincentek, bere kontaerari eutsi guran. Edorta Jimenez

Talde batek Anshel **apaiz katolikoen** eskuetan erori eta kristautu egin zelako ondorioa atera zuen. Koro Navarro

Bestalde, Turkian, Trabzon hirian, joan den igandean Andrea Santoro **apaiz katoliko** italiarra hil izana onartu zuen atzo 16 urteko gazte batek, Poliziaren arabera. Berria - Mundua

Hitlerren lege arrazisten aurka azaldu ziren **apaiz katolikoen** egoera azaltzen du Der neunte Tag-ek, Luxenburgoko Jean Bernard apaizaren estutasunaren bidez. Berria - Kultura

Ziur jakinik eta kontuan harturik, penitentzia eta absoluzioa edozein **apaiz katolikogandik** hartzen dutenean, zalantzarik gabe barkatzen zaizkiela beren bekatuak, baldin eta ezarritako penitentzia apal eta zintzo betetzen saiatzen badira. Askoren artean

Turista aleman talde oso bat hantxe zegoen multzoturik, **apaiz katoliko** bat gidari, denak ere elkarri ia bultzaka erliebe bati begira, istripu baten lekukoak bailiran, eta niri ere jakin-mina piztu. Joxe Austin Arrieta

Gaiak hauek izango dira: bertako gizonen arduragabekeria, kezka politikoak, hilketak, segurtasun eza eta... zelibatoaren hausketa **apaiz katolikoen** aldetik. Pako Aristi

9 *apaiz lagunkide*

Pitxia haserretzea ematen zuen naturalena, baina, kandelagile eta gizon erlijioso gisa haserretu ez ezik, laguna zirikatu ere egiten zuen, bikarioaren, **apaiz lagunkideen**, sakristauaren edo seroraren kontra gauza gogorragoak esan zitzan. Koro Navarro

10 *apaiz laguntzaile*

Entzun, bada, zuk, Josue apaiz nagusi horrek, eta entzun bezate zure **apaiz-laguntzaileok**, ernetzeko dagoen salbamenaren aurre-ezaugarri direnok: Nik neure morroi "Ernemuin" ekarriko dut. Elizen arteko biblia

Parrokia lasaia izango zen Itsasondokoa berak bere soziologia-lanei ekin ahal izateko, are gehiago **apaiz laguntzaile** bat izanda, Martin Iztueta, Martin Potxolo ezizenaz ezagunagoa. Xabier Mendiguren Elizegi

11 *apaiz langile* *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi)*

Laneko apaiz edo **apaiz langile** langileen mugimendutik gertu edo langile moduan bizi den apaiz katolikoak ziren. Apaiz hauek Askapenaren teologiaren aitzindariak izan ziren. ETC-entziklopedia

Aita Uruguaiko lehen **apaiz langilea** izan zen, eta gobernu autoritarioak torturatu eta heriotza-mehatxua egin zion. ETC-entziklopedia

Aspaldi burgestu zitzaigun, ordea, belaunaldia; sukartu gintuzten **apaiz langile** kementsu gehienak ere gaur ez dira ez apaiz eta ez langile. ETC-prentsa

Matoi txukunen gisan egin zieten justizia Frantziako iparraldeko Outreau herriko eta inguruko okin, **apaiz-langile**, mekanikari, taxilari, atezain eta beste zenbait herritar xumeri. ETC-prentsa

Esaterako, industriako errenta mailak erakarrita, txaboletan bizi behar zuten etorkinen artean, eurekin bizitzen jarri ziren **apaiz langileak** ikusita. ETC-prentsa

Apaiz langileak deitzen zirenak kanporatu zituen Elizak. ETC-prentsa

Garai hartan **apaiz langileen** mugimendua zetorren Frantziatik. ETC-prentsa

Izan ere, langile herri batean eraiki zuten, orduko **apaiz langile** haietako batek eskatuta, eta herritarrek beraiek ordaindu zuten. ETC-prentsa

Apaiz langile izana zen Testa egin eta arduradunak etorri zitzaizkidan: "Halako galdera ez duzu erantzun", "Uste dut modu intuitiboan erantzutekoa zela". ETC-prentsa

Apaiz langile izan zen, lantegian, gau-eskoletan, Goierriko Euskal Eskolan eta Lazkaoko Maizpiden. ETC-prentsa

Solabarriarekin batera **apaiz langileen** mugimenduko kide izandako Juan Arregik eta Juan Zulaikak, eta Javier Sadaba filosofo eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Etika katedradun izandakoak parte hartuko dute hitzaldian. ETC-prentsa

Frantzian 1952. urtean sortu zen **apaiz langileen** mugimenduak eragin handia izan zuen gure artean ere. ETC-literatura, saiakera

Goizean goiz, lanera alde egin behar izan duten eta iluntzean itzuliko diren gure arteko "**apaiz langileak**", sei. ETC-literatura, saiakera

12 *apaiz nagusi*

Apaiz nagusiak, zekorraren odoletik pixka bat harturik, elkarketa-etxolara eramango du. Elizen arteko biblia

Ez diozue dirurik onartuko babes-hiriren batean babestu denari ere, **apaiz nagusia** hil baino lehen bere lur-ondarera itzultzeko baimenaren truke. Elizen arteko biblia

Antzerako oinarria eman zion Egiptoko "Inperio Berriak" eliza panegipziakoari Amon Ra-ren **apaiz nagusiaren** pean Tebasen, eta Sasaniar Inperioak zoroastroar elizari. Iñaki Mendiguren

San Pedrok **apaiz nagusiaren** morroi bat zauritu zuen; eta Jesus otzanak: "Ipin ezazu ezpata bere lekuan" esanez, morroiaren zauria sendatu zuen. Patxi Altuna

Ikasleak utzirik, Anasengana daramate, eta San Pedrok urrundik jarraituz, behin ukatu egin zuen, eta Kristori zaflada bat eman zioten, esanez: "Horrela erantzuten al diok **apaiz nagusiari**?". Patxi Altuna

Fariseuek, berriz, **apaiz nagusiek**, lege-maisuek eta santutasun-itxurak zituzten haiek guztiek oposizio gogorra egin zioten eta azkenean heriotza-zigorra eman. Joan Mari Lekuona

Jaso, baita ere, Kristo **apaiz nagusiaren** zigilua, horren indarrez, zure hitz eta egiteak akasgabeko eta egiazkotzat aitortuko baititutze denek. Askoren artean

Ez dago, ez erregerik, ez **Apaiz Nagusirik**, haien lanak nolakoa izan behar duen erabaki edo haien ikerketei mugak jarriko dizkienik. Jon Muñoz

13 *apaiz obrero* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Batez ere asistentzi lana zen eta marinelei laguntzekoa, baina niri erakargarriagoa zitzaidan frantsesek egiten zuten lana, Parisko auzoetako **apaiz obreroen** ildoan. ETC-prentsa

Langile-auzoetako parrokietan biltzen ziren **apaiz obreroen** konplizitatearekin. ETC-prentsa

Frantziako estatuan ezagutu zituen orduko Eliza katolikoaren egitura eta ohiturak inarrosten zituzten **"apaiz obreroak"**, 1960ko hamarkadan Euskal Herrian ere oihartzuna izango zutenak. ETC-prentsa

Ordurako marxismoa pixka bat ikasita genuen, bagenituen Vietnam, Aljeria, Kuba, **apaiz obreroak**... ETC-prentsa

14 *apaiz talde*

Senatoreek, erakunde jakintsuenaren kide eta erlijioaren buru zirenak, ez zuten **apaiz talde** baten beldurrik, ezin zituzten talde horien mendekuaren zerbitzari bihurtu, zerua mendekatzen zuten aitzakian. Juan Martin Elexpuru

Lapur-sail baten antzera, zelatan dago **apaiz-taldea**. Elizen arteko biblia

Daviden aginduari jarraituz, Salomonek **apaiz-taldeei** beren eginkizunak ezarri zizkien. Elizen arteko biblia

15 *emakume apaiz*

Kultu horrek ospea eman zion Olinpiari, eta Kretako **emakume apaiz** eta biztanle asko bertan finkatu ziren, bizimodu berri bat aurkitzeko esperantzaz. Berria - Kirola

16 *laneko apaiz* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Laneko apaiz edo apaiz langile, langileen mugimendutik gertu edo langile moduan bizi den apaiz katolikoak ziren. Apaiz hauek Askapenaren teologiaren aitzindariak izan ziren. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**
>
> **apaiz bat** (73); **apaiz batek** (41); **apaiz baten** (18); **apaiz batengana** (5); **apaiz bati** (14); **apaiz batzuek** (5); **apaiz batzuk** (6); **apaiz egin** (11); **apaiz gazte** (9); **apaiz gazte bat** (6); **apaiz guztiak** (6); **apaiz haiek** (5); **apaiz hark** (5); **apaiz hori** (5); **apaiz irlandarrak** (9); **apaiz izan** (14); **apaiz izateko** (11); **apaiz jantzia** (5); **apaiz jantziak** (7); **apaiz jauna** (28); **apaiz jaunak** (9); **apaiz katoliko** (7); **apaiz lebitarrek** (7); **apaiz lebitarren** (5); **apaiz nagusi** (38); **apaiz nagusi izendatu** (5); **apaiz nagusia** (33); **apaiz nagusiak** (39); **apaiz nagusiak eta** (10); **apaiz nagusiaren** (31); **apaiz nagusiari** (16); **apaiz zaharra** (5); **apaiz zerbitzua** (7); **apaiz zerbitzurako** (9); **bere apaiz** (11); **beste apaiz** (22); **bi apaiz** (5); **gure apaiz** (5); **herriko apaiz** (5); **hiriko apaiz** (5); **izeneko apaiz** (8); **jaunaren apaiz** (6); **josue apaiz** (9); **nire apaiz** (13); **nire apaiz zerbitzurako** (5); **zenbait apaiz** (5)
>
> **apaiza da** (10); **apaiza eta bizargina** (6); **apaiza izan** (7); **apaiza zen** (15); **herriko apaiza** (10)
>
> **apaizak aldarean** (6); **apaizak bekatuaren** (6); **apaizak bekatuaren barkamen** (6); **apaizak erantzun** (8); **apaizak eta lebitarrak** (10); **apaizak eta profetak** (5); **apaizak ezin** (5); **apaizak jaunaren aurrean** (5); **apaizak miatu** (6); **egingo du apaizak** (15); **esan zuen apaizak** (14); **kutxa zeramaten apaizak** (5)
>
> **apaizaren aurrean** (5); **apaizaren eskuetan** (5); **apaizaren seme** (8); **apaizaren sotoan** (8)
>
> **apaizari eman** (5); **apaizari eramango** (5); **apaizari esan** (5); **herriko apaizari** (5)
>
> **apaizei dei egin** (6)
>
> **apaizen artean** (7)

---

apaizaldi *iz* norbait apaiz den denbora.

Beraren **apaizaldiko** Kroniketan daude idatziak, bere aitaren ordez apaiz nagusi izendatu zuten egunetik hasita. Elizen arteko biblia

---

apaizandre *iz ipar* ohelaguna, ohaidea.

Karrika bazterretan hiriko egitekoez hitz eta pitz ziharduen agurerik, otsein lizunik eta neskato malmutzik, fruta-saltzailerik eta ostatu-nagusirik, poeta tamalgarririk eta neskame malmutzik, **apaizandre** badaezpadakorik eta soldadu alderrairik. Juan Garzia

---

apaizburu *(orobat **apezburu** g.er.)* **1** *iz* apaizen burua.

Guardaburuak atxilotu egin zituen Seraias **apaizburua**, Sofonias apaiz laguntzailea eta hiru atezainak. Elizen arteko biblia

Gizonaren Semeak asko sufritu behar du; zahar, **apaizburu** eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, eta hirugarren egunean piztu egingo da. Elizen arteko biblia

Judas **apaizburu** eta tenpluko guardaburuengana joan zen, haien eskuetara Jesus nola eman hitz egitera. Berehala aurkeztu zitzaizkion **apaizburuak** eta judu handikiak, Paulo salatzera. Elizen arteko biblia

Orduan, **apaizburu** eta herriko zaharrak Kaifas zeritzan apaiz nagusiaren jauregian bildu ziren. Elizen arteko biblia

Gure **apaizburu** eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutziltzatu. Elizen arteko biblia

Juduen **apaizburuek** esaten zioten Pilatori: -Ez idatzi "juduen erregea", "juduen erregea dela dioena" baizik. Elizen arteko biblia

Orduan, **apaizburu** eta fariseuek Biltzar Nagusia bildu zuten eta esan: -Zer egin? Gizon hau mirarizko seinale asko egiten ari da! Elizen arteko biblia

Jadanik zenbait urte hartan Hazparneko kongregazioan direnek nobiziadua laburtua izatea merezi dutela azpimarratzen du, **apezburuek** asko sofriarazi dietelakotz eta baldintza guziak onartu dituztelakotz. Xipri Arbelbide

Han ziren Anas apaiz nagusia, Kaifas, Joan, Alexandro eta **apaizburu**-familietako guztiak. Elizen arteko biblia

2 *apaizburu goren*

Kontsidero horien guztien ondorioz sortu ziren babes-hiriak, non geratu behar baitzuten **apaizburu gorena** hil arte. Iñaki Iñurrieta

Pertsiako erregea erlijioburua da; baina Koranak arautu egiten du erlijioa; Txinako enperadorea **apaizburu gorena** da, baina badira liburuak, mundu guztiaren eskuetan daudenak, eta hark ere men egin behar die haiei. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **apaizburu eta herriko** (4); **apaizburu eta lege** (8); **ziren apaizburu** (3)
>
> **apaizburuak eta biltzar** (3); **apaizburuak eta lege** (4)

---

apaizburutza *iz* apaizburuaren kargua eta titulua.

Erlijioak ministro asko dituenean, naturala da haiek buruzagia izatea, eta **apaizburutza** ezarrita egotea. Iñaki Iñurrieta

Monarkian, non ahalik eta gehien bereizi behar baitira Estatuko ordenak, eta non ez baitira buru baten gainean bildu behar botere guztiak, ona da **apaizburutza** eta botere politikoa bereizita egotea. Iñaki Iñurrieta

---

apaizeme *iz* sazerdotesa.

Mari Jane, eskuak teklatuan gora eta behera lasterka, edo, pausaldietan, eskuak gora jasorik, une batez arao dagikeen **apaizeme** baten gisara, eta izeba Kate, orrialdea pasatzeko, Mary Janeren alboan zutik. Irene Aldasoro

---

apaizeria *iz* apaizen multzoa. ik **klero**.

Jainkoen gurtzak etengabeko arreta eskatzen zuenez, herririk gehienek talde berezi bihurtu zuten **apaizeria**. Iñaki Iñurrieta

Kontzilioetako kanonak eta aita santuen dekretalak bildu ziren; eta **apaizeriak** ituri garbiago batetik baletoz bezala jaso zituen lege horiek. Iñaki Iñurrieta

Samariako jendea dardaraz dago, dolu dagite herriak eta **apaizeriak**, Bet-Abengo zekorra dela-eta. Elizen arteko biblia

---

apaizetxe *iz* apaiza bizi den etxea.

Apaizetxe aurrean banandu ziren. Koldo Biguri

On Camillo bere toskano erdia erretzen ari zen **apaizetxe** aurreko jarlekuan eserita, bizikletadun bat ziztuan heldu zenean. Koldo Biguri

Gaztea zen apaiza, jardunzalea; segituan deitu zien gazteei, jolastoki bat antolatzeko, eta orobat liburutegi bat eta hitzaldietarako nahiz bileretarako areto bat prestatzeko, guztia **apaizetxe** handiaren soto zabalean. Juan Kruz Igerabide

Apaizetxea elizatik hogeita hamar metro harantzago zegoen, eta haren alde luzeak plazara ematen zuen. Koldo Biguri

Barkatu: uste dut jendea dagoela **apaizetxean**. Koldo Biguri

On Camillo **apaizetxean** aterpetu zen eta logelan aurrera eta atzera hasi. Koldo Biguri

Dutxarako aukera ere galdu genuen eta horrek bai izorratu ninduela; abuztua amaitzearekin batera putzura joateari utzi nion eta, horrenbestez, **apaizetxeko** dutxa erabiltzen hasi. Xabier Mendiguren Elizegi

Goiz batean, On Camillok, eliz atarira irtetean, ikusi zuen gauez norbaitek "On Gamelu" idatzi zuela kolore gorriz eta metro erdiko hizkiekin **apaizetxeko** horma zuri-zurian. Koldo Biguri

Motoz iritsi naizenean baino askoz ederragoa dirudi orain **apaizetxeko** baratzeak, pertsona batzuen aurpegiek ere gehiago begiratu ahala edertasunean irabazi egiten duten bezala. Pako Aristi

On Camillo orroka abiatu zen **apaizetxeko** bere gela handira. Koldo Biguri

Ea non erabaki duen jartzea kantina, **apaizetxeko** beheko solairuan ala lehenengoan. Koldo Biguri

On Camillok umetxo bat harrapatu zuen **apaizetxeko** zarpiadura zuria ikatzaz zirrimarratzen, eta zezen baten antzera oldartu zen. Koldo Biguri

Eguna beste guztiekin pasatzen nuen: masa egin, adreiluak garraiatu eta halako lanetan; baina gauean, pattar botilak atera eta zalaparta hasten zenean, **apaizetxera** erretiratzen nintzen ni. Xabier Mendiguren Elizegi

Sakristauak eraman zuen albistea **apaizetxera**, eta On Camillok ohetik jauzi eta ireki behar izan zion atea, sakristauak erotua zirudielako eta lehertu egingo zelako dena hasieratik bukaeraraino kontatzen ez bazion. Koldo Biguri

Gau hartantxe, On Camillok ikusi zuen **apaizetxera** zetorrela, Zakarrak eta beste bi arrain lodik lagunduta. Koldo Biguri

Hartara, On Camillok jaurtitako liburu lodia Meharraren burua zegoen puntura iritsi zenerako, Meharra **apaizetxetik** kanpo zegoen eta bizikletako pedalei eragiten ari zitzaien. Koldo Biguri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apaizetxe aurrean** (4); **apaizetxe aurreko jarlekuan** (3); **ari zen apaizetxe** (3); **zen apaizetxe aurreko** (3)
> **apaizetxeko ate** (4)

---

apaizgai *iz* apaiz izateko prestatzen ari den pertsona.

Neu ere **apaizgai** izan nindunan orain hiru urte arte. Inazio Mujika Iraola

Apaizgai zela, Saturraranen hasi zen bere ama-hizkuntza ikasten, Lekuona ikertzailea lagun zuela. Berria - Kultura

Berak **apaizgai** izaten segitzen zuen, gero eta sinesmen sakonagoz, nonbait, eta ni ordurako ateo aitortua eta konbentzitua nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Buenos Airesen **apaizgai** egin zen, baina osasun gutxitxo nonbait, eta jaioterrira jo behar izan zuen. Pello Zabala

Apaizgai bidali nahi ote ninduen orain? Juan Kruz Igerabide

Dena den, beharbada ez genioke aparteko garrantzirik eman behar eta udako maitasun iheskortzat hartu behar genuke, edo osterantzean **apaizgai** baten azken aukeratzat. Patxi Zubizarreta

Bazuten lider moduko bat, Pepelu Retolaza, eskolapioetako **apaizgai** bilbotar bat, oso tipo bitala, nik gutxi ezagutu nuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Tartean izan zen Periko izeneko eskolapio bat, ordenako **apaizgaien** arduraduna. Xabier Mendiguren Elizegi

Sankt Poltengo apaiztegia (Austria) itxi zuen herenegun Vatikanoak, **apaizgaien** eta apaizen artean sexu harremanak izan direla egiaztatu ostean. Berria - Gaiak

Jakin ez zekien ezer seguru, bera baratzean eta barnetegiko ikasleei frantses apur bat irakasten aritzen baitzen, baina **apaizgaien** logeletan-eta mugimendu arraroak sumatzen hasita zegoen, sartu-irten gehiegi ibiltzen baitzen ilundu eta gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Agian irakurleak gogoan izango du homosexualak ematen omen duten apaizen eta **apaizgaien** argazkiekin 2004an egin zuen egutegiak eragindako eskandalua. Anjel Lertxundi

Ez dakit Rakelen egunerokoak zer esango duen, Dabid, baina moteltxo ikusten dut, bai bere buruarekin bai **apaizgaiarekin**. Patxi Zubizarreta

Hori zela-eta, mutil gazte batek - **apaizgai** ohia, Dantxari abizenez, eta Estudiantea ezizenaz ere ezaguna-, Apaizaren taldekoa zenak, Bilintxen bertso batzuk kantatu zituen, *Potajiarena* izenekoak. Koro Navarro

Ni homosexuala naiz eta **apaizgai** talde horretan ere homosexual ugari zegoen. Berria - Euskal Herria

---

apaizgaitegi *iz* apaizgaiak hezten diren etxea.

Apaizgaitegiko arduradunetako batekin. ohe barruan irakurtzen nuen nik, izarapean, linterna txiki baten laguntzarekin, ordu jakin batetik aurrera argia itzali behar izaten baikenuen, bai etxean, bai gero **apaizgaitegian**. Anjel Lertxundi

Bost bat egun hiriburuko etxe batean, gero **apaizgaitegian** sartzeko. Alberto Barandiaren

Apaizgaitegian bost urte eman zituela esan zuen, hura utzi eta medikuntzako fakultatera joan aurretik. Koro Navarro

Errepertorio hau 1959. urtean argitaratu zuten lehendabiziko aldiz, Donostiako **apaizgaitegiaren** ekimenez. Berria - Kultura

Ez Deustura ez Iruñera ez Salamancara ez Goi Mailako Ingeniarien Eskolara joateko gai ez zirenak, eta hala ere ikasketak egiteko gogoa zutenak, seminario eta **apaizgaitegietara** bidaltzen zituzten familiakoek... batez ere etxean lanik ez zegoenean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ez zuen apaizak idatzitako libururik irakurtzen, ez apaizik agertzen zen eleberririk, ez apaizek gomendatutako libururik, **apaizgaitegiko** urte latzak gogoan **Apaizgaitegiko** urte haiek bizitzako urterik garrantzitsuenak iruditzen omen zitzaizkion oraindik ere. Javi Cillero

· Al Sadrek soldaduei esan zien "Hauza ordenaren agindua" (xiiten **apaizgaitegia**) eskuratu beharko zutela bulegora sartu nahi bazuten. Berria - Mundua

---

apaizgintza *iz* apaizgai bati erlijio ordena ematea.

Tenpora-egun hauetako azken egunean, larunbatean, **apaizgintza** edo **apaizgintzarako** pauso edo ordena santuak emango dira: Garizumako lehen asteko koarta-tenporetan justu. Pello Zabala

Eginkizun hori zuei dagokizue, zuei eman baitizuet apaiz-kargua. Apaiz ez den norbaitek **apaizgintzan** badihardu, heriotzara emango dute. Elizen arteko biblia

Apaizgintzarako eragozpenak. Elizen arteko biblia

Eta, horrela, garizumako lehen astean kokatu ziren, eta **apaizgintzarako** ordenazioekin lotu eta bete. Pello Zabala

---

apaizgo *iz* apaizaren lanbidea eta kargua.

Eliza kristauan badela ordena sakratuen sakramentu bat edo **apaizgoa**, sakrifizio eginkizunak eta naturazgaindiko ahalmenak berekin dituena. Xabier Olarra

Apaizgoa belaunez belaun familiako ondarea da. Gotzon Garate

Ezin aldatuzko aukera behin eginez gero, ezin aukera daiteke gehiago, behin egina ezin aska daitekeelako; hala dira ezkontza, **apaizgoa**, etab. Patxi Altuna

Aaronen arropa sakratuak beraren semeengana eskualdatuko dira, eta sagaratzean eta **apaizgoa** hartzean jantziko dituzte. Elizen arteko biblia

Jantzi hauek ipiniko dizkiezu zeure anaia Aaroni eta beronen semeei eta, olioz gantzutuz, **apaizgoa** emango diezu; horrela, nire apaiz-zerbitzurako sagaratuko dituzu. Elizen arteko biblia

Eta, **apaizgoa** aldatuz gero, nahitaez aldatzen da legea ere. Elizen arteko biblia

Jean Etcheverry Aldude-Urepeleko apezak ospatzen zituen bere 50 urteko **apaizgoak** jende alde kopuru eder baten aitzinean. Herria

Horregatik, urte hartan bertan, hiru anaia igoarazi zituen **apaizgora**: lehen aipaturiko Palmerio, Abraham hungariarra eta Andres alemana, lehen Hartmuth deitzen zena. Askoren artean

Israelen leinu guztietarik zuen aita hautatu nuen **apaizgorako**, nire aldarera igo zedin, intsentsua erre ziezadan eta nire santutegian efod delakoa jantzi zezan. Elizen arteko biblia

Beren jatorri bila genealogi liburuetan ibili arren, ez zuten aurkitu; horregatik, **apaizgotik** kanpora bota zituzten. Elizen arteko biblia

Aaronen semeentzat ere apaiz-jantziak, gerrikoak eta kapelak egingo dituzu, **apaizgoaren** duintasuna adierazteko. Elizen arteko biblia

Bazen, lehendik ere, betidaniko gatazka **apaizgoaren** eta aginpidearen artean, gai pisutsu horren inguruko legeak egin eta epaiak eman behar zirenean. Andres Urrutia

Apaizgo berria eta itun berria. Elizen arteko biblia

Alkimok borroka egin zuen, **apaizgo** nagusia bere esku izateko. Elizen arteko biblia

Simonek ontzat hartu zuen **apaizgo** nagusia, bai eta juduen eta apaizen gudalburu eta gobernari izatea eta denen buruzagi izatea ere. Elizen arteko biblia

Erregeagana gizon handikiaren tankeran joanik, beretzat iritsi zuen Menelaok **apaizgo** nagusia, Jasonek baino zortzi mila kilo zilar gehiago eskainiz. Elizen arteko biblia

Melkisedek eta lebitar **apaizgoa**. Elizen arteko biblia

Lebitar **apaizgoa** herriari eman zitzaion legearen oinarrian zegoen. Elizen arteko biblia

Esperientzia honek bihotz helenikoetan eragin zuen zirrara perla baliotsu baten jabe pribilegiatuekiko inbidia irrikatsua gehiago izan zen iruzurrezko **apaizgoaren** biktimenganako mespretxua baino. Iñaki Mendiguren

Zuek, ordea, jatorri aukeratu zarete, errege-**apaizgo**, nazio sagaratu, Jainkoak beretzat irabazitako herri, ilunpetatik bere argi zoragarrira deitu zaituzten Jainkoaren egintza bikainak iragar ditzazuen. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apaizgo nagusia** (9)
> **lebitar apaizgoa** (4)

---

apaizjale *izond adkor* apaizen aurkako sutsua.

Apaizjale esaten zaie batzuei, baina, garai hartan, apaizak izan ziren matematikarijale porrokatuenak! Jon Muñoz

Apaizjaleak badira, liberal atzerakoiak ere adiskide ditut nik! -Azkartxo adosten zarete zuek, jainkogabe horiek, **apaizjale** liberalekin! -hots egin zuen ozenki On Camillok. Koldo Biguri

---

apaizkeria *iz* apaizen alderdi gaitzesgarria.

Teologia eta gainerako **apaizkeriak** alde batera utzi ostean filosofia ikasi zuen Jonek. Xabier Mendiguren Elizegi

---

apaizkide *iz* apaizgoan kide den pertsona.

San Isidro eguna zen, eta igandero ohikoa ez zen jende saldo hura, alkate, agoazil, txistulari, kanpoko senide, **apaizkide**, korukoak eta abar agurtu beharra zegoen "apaiz agurgarri", "agintari leial" eta antzeko multzoetan banatuz. Pako Aristi

Eta are gutxiago herrikide eta **apaizkide** dudan bati buruz. Txillardegi

Eliaxib apaiz nagusiak eta beronen **apaizkideak** ekin zioten, beraz, lanari, eta Ardien atea egin zuten. Elizen arteko biblia

---

apaizkoi *izond* apaizaren tankerakoa.

Niri bigunegia edo **apaizkoia** iruditu izan zait imintzio hori, baina Monikak onartu egin zion, kordoka sentitzen zelako edo kolpetik indarrik gabe, saminak nekea ematen baitu, eta pasilloan barrena ikusi nituen, Monika komisarioaren besoaren kontra babes hartuz, ezkutatzen. Joxean Agirre

Komisarioaren esku **apaizkoietan** Monika utzi eta atera nintzen komisariatik egun berean bigarren aldiz bere etxera joateko asmoarekin. Joxean Agirre

---

apaizkondo *iz* apaizaren tankerako pertsona.

Nobela honetan sumatu uste dudan gaia interesatzen zait: apaiz eta **apaizkondo** askoren artean, eta orohar heziera kristau extuak sortzen duen haragi magnifikatze, antsi eta ondorioz errepresio eskizofrenikoa. Patziku Perurena

---

apaizkume *iz adkor* apaizaren tankerako pertsona.

Gizon hori **apaizkume** bat da eta... esan nahi dut, atzerakoi bat, bere arima bezain beltza, eta "esku" hitza zeta batez idatzi banu ere ez zukeen txintik aterako ni gaizki geratzen uztearren. Koldo Biguri

- **Apaizkume** izateko zorian izan nintzenean. Alberto Barandiaren

---

apaiztar ik **apaiztiar**.

---

apaiztasun *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi) iz* apaiz izatearen nolakotasun.

Mateolok **apaiztasuna** galdu du emaztea hartzean; madarikatu egingo du bere ezkontza, madarikatu emakumeak, eta madarikatu ezkontza oro har. ETC-literatura, saiakera

Berriz ere azaldu behar izan diot, oraingoan **apaiztasunik** deklaratu gabe, kontua ez baitago agurmarietarako, izateko ulermen apur bat gazteokin, zeintzuen gogoa Gipuzkoa ezagutzea besterik ez den. ETC-literatura, saiakera

Julianok **apaiztasunaren** goratasunari buruz zituen ideiak... oso-osorik egokitzen dira Janblikoren ikuskerarekin. ETC-literatura, saiakera

Apaiztasun, harrotasun, espiritualtasun horretan ezkutatzen zen bere Nia, hor finkatu eta hazi egiten zen, berak barau eta penitentziaren bitartez itzaltzen zuela uste zuen bitartean. ETC-literatura, saiakera

Bazen han zer edo zer mistikoa, **apaiztasunezkoa** eta erregetasunezkoa, Peguyk ulertzeko modurik ez zeukana, eta askoz gutxiago Huysmansek. ETC-literatura, saiakera

Apaiztasunera heltzen diren gazte horietako askok ez dute behar beste landu beren pertsonalitatea. ETC-prentsa

Apaiztasuna ezaugarri guztiz "heredagarria" izango litzateke, baina ez, jakina, ondoretasunez hartua biologiaren zentzuan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

apaiztegi *iz* apaiz etxea.

Hiriart-Urruti 25 urtez aritu izan zen Larresoroko **apaiztegian** eta bertze hainbertze *Euskalduna* kazetaren zuzendaritzan. Berria - Euskal Herria

Jesusen Lagundiak Xabierko **apaiztegiaren** frontoien orubean eraikiko du Nafarroako bigarren auditoriorik handiena. Berria - Kultura

Euskal Herriko **apaiztegi** eta elizetan aldaketa sakonak ari ziren gertatzen, eta, beste apaiz askok bezala, berak ere ebanjelioa eta teologia erabiltzen zituen garaiko kezka sozial eta politikoei erantzuteko. Rafa Egiguren

Gogora ekarri zuen, bera mutila izaki, etxean zein **apaiztegian** maiz entzundako hura; alegia, emakumea ama izateko jaioa zela, amatasuna zelarik hain zuzen, gorengo loria eta xede bakarra harentzat, eta halakoak. Josetxo Azkona

Entzuna zuen **apaiztegian** egona zela, eta Hitlerren miresle irten zela handik. Bernardo Atxaga

Gogoan izanik artean Andres Untzain Araban bertan zegoela, Egino herrian hain zuzen, uste izatekoa da hantxe elkar ezagutu zutela, Araban, ezaupide hori **apaiztegian** egina ez bazuten bahintzat. Edorta Jimenez

Austriako Saint Poelteneko **apaiztegian** gertatutakoa ikertzeko, ordezkari bat bidali du Aita Santuak. Berria - Gaiak

Horren ostean, Austriako Eliza Katolikoak kargutik kendu zituen **apaiztegiko** burua eta zuzendariordea, eta ikerketa bat hasi zuen. Berria - Gaiak

Hilaren 25ean poetaren betaurrekoak betiko hautsi ziren, Gasteizko **apaiztegi** zaharreko hormaren kontra. Edorta Jimenez

---

apaizteria *iz* apaizen multzoa.

Kristau Elizak kristau-elkartearen zati bat adierazteko hartu zuen hitza, Jainkoak bere **apaizteria** profesional gisa bera zerbitzatzeko aukeraturiko zatia adierazteko, hain zuzen. Iñaki Mendiguren

Uste bazuen dibertitu egingo zela bere **apaizteria** zibil guztiarekin nire gramatika akatsen azterketa logikoa azalduz, oker zegoen. Koldo Biguri

Apaizteria faltsua... Koldo Biguri

---

apaiztiar *(orobat **apaiztar**) izond* apaizen aldekoa.

Badakizu, ezta?, ni ez naiz oso **apaiztarra**; baina beharrezkoak direla diot, eta beharrezkoak dira. Karlos Zabala

Apaiztiar edo apaiz-zale berezko zentzuan honako doktrina honen aldekoa da: Eliza kristauan badela ordena sakratuen sakramentu bat edo apaizgoa, sakrifizio eginkizunak eta naturazgaindiko ahalmenak berekin dituena. Xabier Olarra

Apaiztiar, *izond* Elizgizonak oro apaizak direla sinesten duena. Xabier Olarra

---

apaiztu, apaiz(tu), apaizten da/du *ad* apaiz bihurtu, apaizgoa hartu edo eman.

Eta lehen harridura horretaz mintzatu gara, nire GMI-ren kalterako, platerak kasik ahantziak genituela: Segoviako beraren familia sinestuna, erabakiaren gogorra, teologia ikasketak...; zazpi lagun hasi omen ziren **apaizteko** asmotan, eta ikasketak bik bakarrik amaitu dituzten arren, horietatik bera bakarrik da apaiztekoa. Patxi Zubizarreta

---

apaiztxo *iz adkor* apaiz xumea.

Ni ere seminariotik atera berriko **apaiztxo** bat ninduan gerra erdian sartu nintzenean. Koldo Biguri

---

apaka *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) adlag* musuka.

Arnas horrek eutsi zintuen, nola edo hala, taupaka izate honetan, eta honela, **apaka**, apurka idatziz, zure eskuen trebeziaz, adimenaren dotoreziaz, bihotzaren ezti-ozpinez ehotutako hitz samurrez, hain zenuen gertuko eta handi Lurdes denaren, ez zenaren, itzala goratu zenuen, eta goratzen duzu [...]. ETC-prentsa

---

apakin *(corpusean irud/hed soilik) iz* hondakina; ibaiak ekartzen duen hondakina. ik **alubioi**.

Adjektiboa zimur delakoa, soberako, **apakin**, kazetaria zainez mozkortzen denean ikusten da. Iñigo Aranbarri

---

apal[1] *izond* bere burua gutxiesten eta beheratzen duena, harrokeriarik gabekoa; beherea, baxua. ik **umil**. (pertsonei buruz)

Errege **apal** eta bakegilea. Elizen arteko biblia

Atzerago, Bizkaiko herrietako berrehun alkate **apalak**, askotan musuak beltzaran, eta eskuak zaintsu. Txillardegi

Mirabe **apal** izanik, ama emankor, eliza, tenplu, etxola bihurtu delako. zuek, gazteok, izan zaitezte adinekoen menpeko. Askoren artean

Frantziskok hain natural lortzen dituen sintesi handiek erakusten dutenez: hala nola, autonomoa eta era berean denen mendeko eta zerbitzari **apal** izatea. Askoren artean

Izan zaitezte denok **apalak** zeuen harremanetan. Elizen arteko biblia

Gure herriko burgesak **apalak** eta austeroak zirelako. Xabier Mendiguren Elizegi

Kontaezinak dira, infinituak ia, idazleak oroimenaren zurubiko mailetan aurkitzen dituen bidelagun ospetsuak eta bidelagun **apalak** ere. Anjel Lertxundi

Gizon xume eta **apalak** indar izugarria erakutsi zuen pertsonak eta gizarte-harremanak aldatzeko. Askoren artean

Ikas niregandik, bihozbera bainaiz eta **apala**. Joan Mari Lekuona

Aulki hau zerutik amildutako aingeru batena izan zen eta orain Frantzisko **apalarentzat** gordea dago. Askoren artean

1878an *Une page d'amour* argitaratu zuen; 1880an, Nana, prostituta bat gizartean gora nola igotzen den eta gero nola amiltzen den kontatzen duena; 1882an, Pot-Bouille, burgesia **apalari** buruzkoa. Karlos Zabala

Jende **apala** ez zait gustatzen, aspergarriak dira, apaltasunik eza oso ondo dago, harropuzkeria patologikoa bihurtzen ez den bitartean jakina. Mikel Hernandez Abaitua

Jende leiala, otzana, **apala** eta bihotz onekoa aurkituko duzue, bai zuek eta bai zuen esanak pozez eta maitasunez hartuko dituena; eta jende fedegabea, harroa eta biraolaria ere bai, zuei eta zuen esanei irainez aurre egingo diena. Askoren artean

Benetan gizon **apala** zen Moises, munduko gizonik **apalena**. Elizen arteko biblia

Badakizu orain egia dela izan duzun ikuskaria; izan ere, apaltasunak gizonik **apalena** jasoko du harrokeriagatik galdutako aulkira. Askoren artean

2 (bestelakoei buruz)

Txori **apala**, goxoa, adiskidetsua txantxangorria! Gotzon Garate

Garrasi edo kirrinka hots guztiz ezohikoa, **apala**, itxuraz urrunekoa, baina lakarra eta luzea. Koro Navarro

Begi xaloa, gogo **apala**, mihi eztia, erantzun gozoa, bizi-proiektu bera, elkarren zerbitzu bizkorra, ekintza nekaezina. Bide zailetik ibiltzeko eta mendi tontorrera igotzeko beldurrez, bide **apal** eta lauagoak nahi dituztenek ere aurkituko dituzte harengan maila horretarako egokiak diren irakaspenak. Askoren artean

Hogeita hamar mila liberatik gorakoa zen beraz sari osoa, izugarrizko dirutza, kontuan hartzen badugu neskaren jatorri **apala**. Koro Navarro

Unibertsitarioen langabezia **apala** izan arren, lan egiten dutenen %29 unibertsitate maila eskatzen ez duen beste lan batean ari da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Neure aurre-aurrean, Loiolan bertan sartu baino metro batzuk lehenago, nire "Joakiñene" ostatu **apala** zegoen. Txillardegi

Apala zuen begiratua, urduria ibilera. Anjel Lertxundi

Euskal Herriko zientzia ekoizpena **apala** dela esan daiteke, baina zientzia hori sustatzeko egiten den ahalegin ekonomikoa zein den kontuan harturik, ezin zitekeen gehiagorik espero. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gure "El Cuartel Real" aldizkaria, kaxkarra zen itxuraz eta luzeraz, eta basakazeta **apala** benetan. Txillardegi

Gogotsu bota zuen bere burua Jainko errukitsuaren oinetara eta ilunabarrean bere kexa **apalak** zuzendu zizkion Frantzisko santuari: [...]. Askoren artean

Borroka **apalak** dira, munduko bazter txiki batera mugatzen direnak, baina badute, hala ere, bere garrantzia. Jose Antonio Mujika

Zeremonia **apala** eta beroa izan zen, protokolorik gabe mintzatu zitzaigun ingelesez. Edorta Jimenez

"Txipiagoa eta gaiztoagoa" erraten zen hartaz gazteluan, haren tamaina **apala** eta haren izaera eskasa uztarturik. Aingeru Epaltza

Beste zenbaiten ustez, ikasleek dakarten maila **apalak** du gaitz horren errua, eta institutuetan lan hobea egin beharko litzateke. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Birikak hornitzen dituen birika-zirkulazioak nahiko presio **apala** izaten du. Irene Aldasoro

Apalak dira, beraz, dituen energia-beharrak. Irene Aldasoro

Osagarri dira Taiwango ekoizpen elektroniko gero eta sofistikatuagoa, muntaketan aritzen den txinatar lan-eskuaren kostu **apala**, eta Hong Kongeko finantza, merkataritza eta portu-logistika. Koro Navarro

Bizitza ulertzen saiatu naiz bizitza osoan, baina oso emaitza **apalak** lortu ditut. Anjel Lertxundi

Haren barreneko kantu **apala**, musika isila edo soinu emeren bat banaro nabari eta entzun nahirik-edo. Xabier Mendiguren Elizegi

Bizimodu **apala** egiten bazuten ere, ondo jatea gustatzen zitzaien; onenetik dena: azpizuna, hiru txelineko tea, botilako garagardo beltz onena. Irene Aldasoro

Aitorpenekin hasita, sariak ere **apalak** zirela adierazi behar: mila duro irabazleak, edo horrelako zerbait. Xabier Mendiguren Elizegi

Interes-tasak **apalak** zirelarik, eta garapen-bideko herrialdeek esportaturiko lehengaien mundu- prezioen maila altua zela-eta, mailegu haiek bereziki erakargarriak gertatzen zitzaizkien garapen-bideko herrialde askori. Koro Navarro

Gure Allikene hura[...], batera zen baserri **apala**, txapala eta jasoa. Txillardegi

Halako batean, oholtzako ekitaldian etenaldia egin zen, eta Laboaren ahots **apala** entzun zen bozgorailuan, Leteren hitzak kantatzen. Joseba Zulaika

Arratseko argi **apalarekin** asmatu behar du, baina auto handiaren aurreko eserlekuetan keinuka ari direla iruditu zaio. Alberto Barandiaren

Halaxe da, ikatz-koxkorra -onartu zuen gizonak bere ahots **apalarekin**-. Bernardo Atxaga

Aitaren tonukera **apalak** baretasuna kutsatu zion mutikoari, eta aurpegira begiratzeko ausardia hartu zuen. Josu Landa

Mahaiaren aitzinean, jarleku bitxi bat, betoinezkoa hori ere, zolari lotua; zeldaren beste hormari lotua ohea, arrunt **apala**, lurretik hamar zentimetroko goratasunean. Filipe Bidart

Maitasunak, ailegatzen denean, korrika eginarazten dizu, nire uste **apala** hori da. Fernando Rey

Goiz hartako bertsoñoak, ordea, benetako maitasun istorio baten amaiera kontatu nahi zuela ematen zuen, emakume kantariaren begiei zerien negar benetakoak eta ahots ilun **apalak** ere ez zuen besterik adierazten. Anjel Lertxundi

Hurrengo igandean, kondearekin gurutzatu ninduan, igande goizero bezala, herriko plazan, eta, aitak ahots **apalez** agurtzen zuelarik, honela esan nioan nik neure baitan kondeari: [...]. Jon Muñoz

Aldiz langile xoilak badabiltza legezko soldata baino 140 Euro jornal **apalagotan**. Herria

Horiek hola, langileak arrangura dira soldatak **apalegiak** diruztela. Herria

Beretarrei bizileku txiki eta pobreak egiten irakasten zien, zurezkoak, ez harrizkoak, egitura **apaleko** txabolak. Askoren artean

Debozio **apalez** goaz, bada, agindu santu horiek obeditzera, ez baita bidezko inola ere horiekin luzamendutan ibiltzea. Askoren artean

Su **apalean** berotu ondoren, irakiten hasi zenean, katilu bat salda gorde, eta hara bota zituen azafrai-izpiak. Jon Muñoz

Kontuz, anaia, ez esan gezurrik, **apalarena** egiteagatik.

Beren elkarrizketako hitzen batzuk aditzen saiatzen naiz, baina **apalegi** ari dira hitz egiten nik ezeri antzemateko. Oskar Arana

3 (hitz elkartuetan)

Ahots **apal-apalez**, patioko iturriko ura eta Ruche jaunaren aulkiaren karranka antzeratu zituen. Jon Muñoz

Gogoz kartsu ziren, itxaropenean alai, ezbeharrean eraman handiko, gozo eta bihotz-**apal**. Askoren artean

Hartzazue nire uztarria eta ikasi niregandik, gozoa eta bihotz-**apala** bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitzarako atsedena. Elizen arteko biblia

Zakua erantzi gabe etzaten zen eta buru-**apal** zebilen. Elizen arteko biblia

· Ez zaitzatela gaitzets **apal**-itxuran agertu eta aingeruen kultua atsegin duten horiek. Elizen arteko biblia

4 (izen gisa)

Gorena da Jauna, baina **apalari** arretaz dio begiratzen; harroari, berriz, urrutitik igartzen. Elizen arteko biblia

Apalari burua altxarazten dio jakinduriak eta handikien artean eserarazten. Elizen arteko biblia

Apalaren otoitzak hodeiak zeharkatzen ditu eta ez da sosegatzen bere helmugara iritsi arte; ez du etsitzen Goi-goikoak esku hartu. Elizen arteko biblia

Horixe nahi nuen entzun, baina **apalarena** eta kezkatiarena egitea tokatzen zitzaidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Jaun hau anaien bizierara egokitzen zen eta, santu izateko bere grinan, xaloekin xalo zen, **apalekin** apal, behartsuekin behartsu. Askoren artean

Izan ere, hitz oparoko ibaia zen, Elizaren harresi, egiaren zutabe eta **apalen** maitale. Askoren artean

5 (adizlagun gisa)

Biak behartsu eta **apal** bizi izan ziren lurrean, biak aberats sartu zeruan. Askoren artean

Eskuan munka ibiltzen dira, **apal** mintzatuz lagun hurkoaren ondasunez Ez dio axola non jartzen duten, ez du lekuz aldatzea eskatzen; karguren batera jasotzen badute, **apal** jarraitzen du beti bezala. Elizen arteko biblia

Apal eta pobre nahi ditu anaiak. Askoren artean

Ezarritako penitentzia **apal** eta zintzo betetzen saiatzen badira. Askoren artean

Zorionekoa, bere mendekoen artean, nagusien artean balego bezain **apal** ageri den zerbitzaria! Askoren artean

Apal **apala** mintzatzen da, malko hastapen batek ezkerreko begia dirdiratzen diola. Eneko Bidegain

Urte batzuk lehenago, irakaskuntzari **apalegi** iritzirik, politikan hasi zen. Anjel Lertxundi

Gainera, ez nuen ene burua **apalegi** ezarri behar. Daniel Landart

6 ***apal-apal***

Egun hartan israeldarrak **apal-apal** gelditu ziren; Judakoak, berriz, garaile, Jauna, beren arbasoen Jainkoa, izan zutelako eusle. Elizen arteko biblia

Ixil-ixila nengoen ene xokoan, burua **apal-apala**, gaitzeko hotzikara batek kolpez sesitua. Janbattitt Dirassar

7 ***apal-apalik*** *adlag* guztiz apal.

Eta hil-herriko ixiltasunean, gure lore sortak **apal apalik** aipatuko du maitasunak segitzen duela gure etxean. Herria

Laser irakurgailuan Jean Jacques Goldmanen KDa jarri nuen, **apal-apalik**, auzoak ez iratzarrarazteko gisan. Itxaro Borda

-Joan aurretik laranjatxo bat jan nahi nuke -eskatu zuen **apal-apalik**. Patxi Zubizarreta

8 ***arrastiri apal*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Arrastiri apal hartan, Martinak, zerua buru gainera lehertzen zitzaiola uste ukan zuen. ETC-literatura, saiakera

Peredikü emaite zonbaitetarik landa, 12: 30etarik, harat, jei giroa nausitüren da Lextarreko plaza eder hortan, **arrastiri apaleko** 19: 00etan, nonbait han, müsikaz, kantüz eta koblaz alageratürik datekean karrika üngürü batekila ürrentüko delarik besta egünaldia. ETC-prentsa

Ekaina bero honetako **arrastiri apaletan** Santizpirituko Errepublika Plazara noa, hango platano zuhaitzen maldan bazterrei begira edo irakurtzen higatzeko. ETC-prentsa

9 ***arrats apal*** *(orobat **arratsapal** g.er.)* arrastiria, arratsaldeko azken orduak.

Arrats apal batez, "Lost Days" motelaren harrera gunean izena -faltsua bistan dena- ematen ari zela, urdin-beltzez beztitu lau gizon hurbildu zitzaizkion. Itxaro Borda

Zorionez, **arrats apal** batzuetan gelazaina lokartzen da, eta bakarrik oheratuko naizela erraten diot, joan dadin eta bizturik utz dezan argia. Jon Muñoz

Basa herri barbaro hartatik urruntzeko, ordurik agerikoena hautatu nuen, **arrats apala** , ia gizon guztiak jalgitzen baitira artezi eta putzuetatik, eta sartaldeari beha jartzen, hura ikusi gabe. Juan Garzia

Arrats apala heldurik, arrakasta berberaz egin zuen bere lasterketa hirukoitza. Jon Muñoz

Arrats apalean ez zen seguru sentitzen. Itxaro Borda

Arrats apalean kasernara itzultzen zaretelarik, ur gazitan sartu behar izaten dituzue. Xabier Montoia

Baina, atzo, **arrats apalean** ikusi dudalarik mendixkatik hiria, asmoz Santiagon nintzen. Piarres Aintziart

Beinatek zinez maite zuen **arrats apaletan** , eguzkiak gorritzen zituen mendi arteka gordeetan gauerako borobilean kuzkurtzen zirenean Georgesekin hitz egitea. Itxaro Borda

Arrats apaleko zeru ubelaren kontra altxaturik, gurutze bat dirudi. Xabier Montoia

Erran behar dut izugarri jostatzen nindutela **arrats apaleko** partida haiek, etxeko leiho guztiak bonbardaketen beldurrez itxita eta kandela dardarati baten argi motelak piezen itzalak luzatu eta dantzarazten zituela. Alberto Ladron Arana

Marilynen azken **arrats apaleko** gertakariak, kronologikoki eta mentalki zerrendatzen nituen: hiru gizon hurbildu zitzaizkion etxera, gerora ikerketak haietarik bat Bob zela baieztatuko zuela. Itxaro Borda

Delako alaitasun edo lasaitasun hori, beranduko helenismoaren garaiko "alaitasun grekoa", ezin ote liteke izan gainbeheraren, nekearen, eritasunaren seinale?, **arrats-apaleko** argi gorri ilaunaren pare? Iñaki Segurola

Arrats apalerako beste hitzordu bat iragarria zitzaidan eta ez nuen espantu egitekorik, eguna ahal bezainbat kasu eginez pasatzekoa nuela gogoan atxikiz. Itxaro Borda

Pentsa ez nintzenez gutxi bozkariatu Xaxik, **arrats apal** berde batez bulegora deitu ninduelarik, kuxeluz bezala, linea kontrola pean bailitzan, ahapeka, zerbitzu berezi baten galdatzeko. Itxaro Borda

Oharteman dituzu, **arratsapalean** , Paris inguruko gure bide handietan, karrozaren lauhazkak zure aitzinean jarraika agerrarazten eta ezkutarazten dituen zumar guztien soslai izugarriak? Koldo Izagirre

Arratsapaletan Nîmes-ko aldirietan barrena ibiltzea maite zuen; koaderno bat eraman ohi zuen aldean, eta su alai bat egiten. Juan Garzia

Casin Cholet-ek ganbera-zulo koxkor bat aurkitu zuen bere neskalagunarentzat, Trois-Pucelles-en ondoan, eta hara egiten zion bisita **arratsapalean** . Juan Garzia

10 ***arratsalde apal***

Arratsalde apaleko heltzen gira Villa-Maria-rat eta afaltzen gira euskal etxean pesta tokirat joan aintzin. Herria

Duela 23 urte, Turismo Gelan, **arratsalde apal** batez bilduak ginen, ilabetean behin ohi ginuen bezela, hamar bat adixkide. Herria

-Lehenengo lezionea -erran zidan, mahaiaren inguruan zeuden bi aulkietan esertzen ginela, mahai gainean zegoen mapamundiaren alde baterat, udazkeneko **arratsalde apal** epel batean -. Joan Mari Irigoien

Arratsalde apala da. Michel Oronoz

Arratsalde apalean ziztu bizian zabiltzan autoen azantzak hautematen nituen, karrikan goraki eleka ari ziren etorkinen aditz kolpatuak. Itxaro Borda

Katakumeak, katu jende guztiak bezala gauzalea baitzen, ez zuen **arratsalde apalean** lo egitera joan nahi. Gotzon Garate

Arratsalde apalean Eiherateko Zokora gidatu zituen urratsak. Itxaro Borda

Harat orduko, ez dut jakiten Magaliren herrirat treinik ez zela **arratsalde apalean** baizik! Janbattitt Dirassar

Lau lagun bildu ohi zineten **arratsalde apalean** : Artola, Oronoz, Haranburu eta laurak. Xabier Montoia

Arratsalde apal hartan talde bat ari zen musika klasikoa jotzen. Patxi Zubizarreta

-Mikel, gaur **arratsalde apalerako** euria izango dugu. Gotzon Garate

Arratsalde apalean oraino, Genovako presondegiko murru lodien gibelean zegoen gela hertsi batean, Markoren abots apala eta Rustichelloren lumak paperean egiten zuen zirrista entzun ziratekeen. Aurelia Arkotxa

1586an, ekainaren 21eko **arratsalde apalean** , Pincio muinoko bere etxean, Erroman hil zen, Iarunbatarekin, Martin Azpilkueta, Doktor Nafarra deitua. Piarres Xarriton

11 ***belarriak apal***

Eme baten usaina aditu orduko, lorategian inguruka hasiko zen, **belarriak apal** eta buztana hanken artean sartuta, negar-intzirika, ezkutatu nahirik". Oskar Arana

12 ***bizimodu apal***

Oso **bizimodu apala** egiten genuen Ryokok eta biok, baina ez batere tristea. Javi Cillero

Gabriel Irisarrik, gustu oneko bezain **bizimodu apalekoa** izaki, haltzari gutxi ekarri zituen jauregira, erosoak hala ere. Felipe Juaristi

Bizimodu apala egiten bazuten ere, ondo jatea gustatzen zitzaien; onenetik dena: azpizuna, hiru txelineko tea, botilako garagardo beltz onena. Irene Aldasoro

13 ***buru-apal*** *(orobat **buruapal**) izond*

Buru apal zoazte, daramazuen zamaren eta eguzkiaren ondorioz. Xabier Montoia

Zakua erantzi gabe etzaten zen eta **buru-apal** zebilen. Elizen arteko biblia

Buru-apal , agure baten gisan urrundu zara kapitainarengandik. Xabier Montoia

Etsipenaz gainezka, **buru-apal** , hiltzera zoazte. Xabier Montoia

Zakarraz gogoratu zen, bere leialenaz, eta haren begiak bilatu zituen, baina Zakarra hondoan zegoen, besoak tolestuta eta **buruapal** . Koldo Biguri

14 ***jende apal***

Polita da, hala **jende apala** dela erakusten dute, eta eurak ikusita norbait ikasten animatzen bada, hobe. Berria - Kirola

Kaleargi bakarraren argi ahulak zirkulu herdoilduaren erdian jotzen zuen, behin etxe izandako adreilu mordo, egur hautsi eta hautsaren gainean, hiri zikineko **jende apala** eta ezezaguna eta ezin ahaztuzkoa bizi eta maitatu eta hil, eta, beti, galtzaile izan zen leku hartan. Koro Navarro

Jende apalen txabolak ziren, eta Krasnoiarskeko guztiak bezain huts eta ezer-gabe zeuden. Karlos Zabala

Nire herriak bizitzarekin du lotura, mendi aldeko **jende apalarekin** . Berria - Kultura

Eta **jende apal** eta behartsua utziko dut zurean: niregan izango dute babes. Elizen arteko biblia

Ordura arte liburuan agertzen diren gehienek herri kutsua dute, **jende apala** da, bentetako jende xelebrea, edonon susma daitekeen miseria gorria... Patxi Ezkiaga

Mantxako jende hura erasokorra, bortitza, harroa izango zela uste zuen; ez, ordea: **jende apala** , atsegina, handiusterik gabea zen gehiena. Josu Zabaleta

15 ***labe apal*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Labe apala metalurgia-labe mota bat da, burdinoletan erabiltzen zena burdin mearen erredukzio zuzena egiteko. ETC-entziklopedia

Finketarako, burdina urtua berriro berotu egurikatzez **labe apaletan** , eta handik ore xaflakor eta plastikoa ateratzen zen, burdina geza, eta handik, berriz, barrak egiten ziren mailu hidraulikoen bidez, edota xaflak urez mugitutako arrabolen bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

16 ***Pirinio Apal*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi) pl*

Pirinio apalak eder ageri zaizkizu ortze barrenean, oro muino, zuhain eta pentze. ETC-prentsa

Baina 1857an, Frantziako departamenduak antolatu zituzten garaian, Frantziako Iraultzako gobernuak Landak sortu zituen alde batetik, eta bestetik **Pirinio Apalak** . ETC-

prentsa

Frantziar Iraultzaren garaian, **Pirinio Apaletako** herria ordezkatu zuen. ETC-entziklopedia

Mende erdi geroago, **Pirinio Apaletako** prefetak deitoratu egin zuen bere mendeko lurraldean 80.000 biztanle gutxiago zeudela zergapetzearen eta zerbitzu militarraren ondorioz. ETC-entziklopedia

Frantziako departamendu sistema sortzeko dekretuari Pirinio Atlantikoak **Pirinio Apalak** departamenduaren sorrera jarraitu zion 1790eko otsailean. ETC-entziklopedia

17 *su apalean*

Familiari anitz kostatuko zitzaizkion hamar urteko presondegi zigorra emanen ziotela paper faltsu eta arma debekatuekin ibiltzeagatik eta ilunpearen **su-apalean** gaztaroa erreko zitzaiola. Itxaro Borda

Su apalean berotu ondoren, irakiten hasi zenean, katilu bat salda gorde, eta hara bota zituen azafrai-izpiak. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ahots apal apalean** (3); **ahots apal apalez** (9); **ahotsa apal** (3); **apal ageri** (3); **apal agertu** (3); **apal antzean** (3); **apal apal hitz** (5); **apal apal hitz** (5); **apal apala** (13); **apal apalik** (3); **apal ari zen** (3); **apal bada** (3); **apal baina** (12); **apal bat baizik** (5); **apal bat besterik** (4); **apal bat egin** (6); **apal bat entzuten** (3); **apal bat zen** (4); **apal batean zegoen** (4); **apal batek** (7); **apal batekin** (4); **apal bateko** (5); **apal baten aurrean** (3); **apal baten gainean** (7); **apal batentzat** (3); **apal batetik bestera** (3); **apal batez** (15); **apal bati** (5); **apal batzuen gainean** (3); **apal batzuk** (8); **apal bizi** (3); **apal egin** (4); **apal eta debozioz** (3); **apal eta txit** (3); **apal eta umil** (4); **apal hark** (3); **apal hartan** (4); **apal hau** (8); **apal hitz egin** (4); **apal hori** (5); **apal horrek** (3); **apal horretan** (4); **apal hura** (4); **apal izan** (7); **apal izatea** (3); **apal jarraitzen du** (3); **apal luze** (3); **apal mintzatu** (3); **apal samar** (3); **apal samarra** (6); **aratsalde apal** (4); **arrats apal** (4); **arratsalde apal** (4); **aulki apal** (4); **baina apal** (5); **baserri apal** (3); **bera apal** (3); **beste apal** (4); **beteriko apal** (3); **beti apal** (3); **bezain apal** (8); **bihotz apal** (3); **biziki apal** (3); **buru apal** (6); **buruak apal** (3); **eguzkia apal** (3); **ere apal** (9); **esan zion apal** (3); **etxe apal** (7); **gehienak apal** (3); **gelako apal** (3); **gizon apal** (7); **hain apal** (9); **hots apal bat** (3); **intziri apal bat** (3); **irri apal** (3); **izan apal** (3); **liburu apal** (4); **liburutegiko apal** (3); **mahai apal baten** (4); **maila apal** (6); **marmar apal** (3); **muino apal** (3); **talde apal** (12); **urx apal bat** (3); **xume eta apal** (4); **zerbitzari apal** (5); **zerbitzari txit apal** (3); **zoin apal** (3); **zuen ahots apal** (5); **zuen apal apal** (4); **zuen apal apal** (4); **zuen oso apal** (3)
>
> **ahots apala** (4); **apal apala** (13); **apala baina** (7); **apala bere** (3); **apala besterik ez** (3); **apala dela** (12); **apala den** (6); **apala edo** (3); **apala egin** (5); **apala egiten** (3); **apala ez** (6); **apala izan zen** (4); **apala izango** (5); **apala izatea** (6); **apala naiz** (3); **apala zenez** (4); **argi apala** (5); **aski apala** (3); **baina oso apala** (3); **benetan apala** (4); **bezain apala** (3); **gizon apala zen** (4); **guztiz apala** (3); **hain apala** (4); **hain zen apala** (3); **jende apala** (6); **leku apala** (4); **maila apala** (8); **pobre eta apala** (3); **talde apala da** (6); **talde apala gara** (3); **txit apala** (3); **zerbitzari apala** (4)
>
> **apalago batek** (4); **apalago batera** (3); **apalago hitz egin** (4); **are apalago** (4); **baina apalago** (5); **baino apalago ari** (3); **baino apalago ezarri** (3); **baino apalago ezartzen** (3); **ere apalago** (3); **gero eta apalago** (6); **hein apalago batean** (3); **lurra baino apalago** (10); **maila apalago batean** (5); **talde apalago** (4)
>
> **apalagoa den** (8); **apalagoa dute** (3); **apalagoa izan da** (4); **apalagoa izan zen** (6); **apalagoa izango** (5); **apalagoa izanik** (3); **apalagoa zen** (6); **apalagoa zena** (3); **askoz apalagoa** (6); **askoz ere apalagoa** (7); **askoz talde apalagoa** (3); **baino apalagoa da** (3); **baino apalagoa izan** (9); **gero eta apalagoa** (4); **maila apalagoa** (6); **tasa apalagoa** (3)
>
> **apalagoak dira** (6); **apalagoak direla** (3); **apalagoak direlako** (3); **apalagoak izan ziren** (3); **askoz apalagoak** (3); **baino apalagoak** (14); **baino emaitza apalagoak** (3); **ere apalagoak** (3); **helburu apalagoak** (3); **irabazi apalagoak dituenak** (4); **ondare irabazi apalagoak** (4); **soldata apalagoak** (3)
>
> **baino maila apalagoan** (5); **modu apalagoan** (3); **neurri apalagoan** (3)
>
> **apalagoen aurka** (3)
>
> **baino maila apalagoko** (5)
>
> **maila apalagokoa** (4)
>
> **maila apalagokoak** (7)
>
> **ahots apalagoz** (4)
>
> **apalak dira** (12); **apalak direla** (3); **apalak ere** (3); **apalak ez** (5); **apalak izan** (8); **apalak zeuden** (3); **apalak zirela** (3); **apalak ziren** (3); **argi apalak** (6); **aski apalak** (3); **liburutegiko apalak** (4); **nahiko apalak** (3); **oso apalak** (10); **soldata apalak** (5); **tasa apalak** (5); **xume eta apalak** (3)
>
> **apalaren gainean** (3); **talde apalaren** (5)
>
> **frantzisko apalarentzat** (3)
>
> **ahots apalaz** (4); **ene uste apalaz** (3)
>
> **ahots apal apalean** (3); **arrats apalean** (5); **arratsalde apalean** (20); **asteazken aratsalde apalean** (3); **bere apalean** (3); **ene uste apalean** (12); **gaineko apalean** (3); **goiko apalean** (5); **maila apalean daudela** (3); **modu apalean** (6); **neurri apalean** (3); **nire uste apalean** (17); **prezio apalean** (4); **tximiniako apalean** (3)
>
> **interes tasa apalek** (3); **talde apalek** (4)
>
> **prezio apalekin** (3)
>
> **alokairu apaleko** (3); **apaleko xirribika** (3); **aratsalde apaleko** (3); **arrats apaleko** (4); **arratsalde apaleko** (3); **kalitate apaleko** (3); **kostu apaleko** (3); **maila apaleko** (13); **profil apaleko** (3); **soldata apaleko herrialdeen** (3)
>
> **apalena da hori** (3); **apalena ere** (8); **apalena izan da** (3); **gizonik apalena** (3); **izandako mailarik apalena** (3); **maila apalena** (7); **zure zerbitzaririk apalena** (4)
>
> **apalenak ere** (3); **irabazi apalenak** (3)
>
> **maila apalenean** (3); **urteotako mailarik apalenean** (3)
>
> **apalenen aurka** (4)
>
> **apalenera jaitsi** (4); **mailarik apalenera** (3)
>
> **bere apalera** (3); **maila apalera** (3)
>
> **apaletan kokatzen** (3); **arrats apaletan** (4); **bere apaletan** (5); **goiko apaletan** (3); **liburutegiko apaletan** (3); **maila apaletan** (3); **prezio apaletan** (4); **talde apaletan** (4)
>
> **ahots apal apalez** (9); **apalez esan** (3); **debozio apalez** (4); **du ahots apalez** (5); **hitz apalez** (4); **irribarre apalez** (3); **oso ahots apalez** (3); **zidan ahots apalez** (5); **zuen ahots apalez** (11)

---

apal[2] 1 *iz* paretan edo altzari batean, bertan gauzak edukitzeko ezartzen den ohola. ik**arasa**.

Aurki, liburuz gainezka egongo ziren **apalak**. Jon Muñoz

Pasatzerakoan, aulki baten kontra jo, paper-zorro bat aurrean eraman, eta eskuliburuz leporaino betetako **apal** bat urratu zuen. Jon Muñoz

Liburuak **apal** estuetan estuegi sartuta ikustea zen Ruche jauna gehien haserrearazten zuten gauzetariko bat. Jon Muñoz

Barruko gelan, zeramikazko ontziz beteriko **apalak** eta ziape-koloreko oihal batez estalitako mahai biribil bat zeuden. Lopez de Arana

Besaulki batean eseri nintzen, beheratu nuen **apala**, eta esandako tiradera zabaldu nuen. Josu Zabaleta

"Politika" zioen **apala** propagandako liburu eta panfletoz beterik zegoen. Koldo Biguri

Egongelako DVD eta bideo-zinten **apala** ere halakoxea zen: *Surcos* edo *Plácido* bezalako filmen ondoan No-Do-aren lehenengo garaietako bilduma osoa ageri zen. Iban Zaldua

Josuren liburutegiko **apalak** miratu eta komiki bat hautatu nuen. Aingeru Epaltza

Luluk luma-erratzaz **apalak** garbitzen jarraitu zuen. Josu Zabaleta

Etxaldea handia zen eta zaila zen hormen kolorea zehaztea, hain zeuden hormetako **apalak** liburuz mukuru. Harkaitz Cano

Eskribek eskuizkribuok kontu handiz aztertu eta berriz kopiatu ondoren, beren jabeei itzuliko zaizkie; kopiak, berriz, liburutegiko **apalak** aberastuko ditu. Jon Muñoz

Bere bulegoan sartu zituen; idazmahai handi bat zegoen, ziratua eta kontu handiz lustratua, gainerako altzariak eta **apalak** bezala, zoruan islatzen zela, **Apalak** eta **apalak** zeuden imajina daitezkeen gozokirik goxoenez bete-bete eginda. Josu Zabaleta

Apalak okerturik daude, eta konpontzeko tirafondo sendoagoak jarri dituzu. Lander Garro

Begirada batez sala zeharkatu, eta telefono bat ikusi du, beltza, zahar-itxurakoa, liburuz estalitako **apalaren** ondoan. Iban Zaldua

Duda-mudatan ibili zen musika tresnen **apalaren** aurrean. Aritz Gorrotxategi

Beheko sua txinpartaka zegoen, ondo landutako tximiniko **apalaren** azpian. Iñaki Mendiguren

Hynes jaunak, tximiniako **apalaren** kontra jarririk, galdetu zuen: [...]. Irene Aldasoro

Liburu guztiak ateratzeko eta berehala **apaletan** jartzeko irrika eroa izan zuen, begirada bakarraz liburutegi osoari neurria hartu ahal izateko. Jon Muñoz

Saileko **apaletara** joan zen gero: Arabiar Matematika. Jon Muñoz

3. saileko **apaletaraino** higiarazi zuen Ruche jaunak aulki gurpilduna: mendebaldeko matematika, 1400etik 1900era. Jon Muñoz

Liburu hauek atereak zituen Ruche jaunak OLko **apaletatik**: *Quesiti e Invenzioni diverse eta General Trattato*, Tartagliarenak, eta *Ars magna*, Girolamo Cardanorena. Jon

Muñoz

2 (hitz elkartuetan)

Aurkitu zuen, azkenik, bere lekua, **apal** -ilara baten erdian. Askoren artean

Xirula, liburu- **apalaren** gainean. Joxe Austin Arrieta

Pabilioia erabat hutsik zegoen, hormen kontra jarritako mekano- **apalak** salbu. Harkaitz Cano

3 ***apaleko xirribika***

Aurten tailer berri batzuk proposatuak dira: akordeoia, flauta " traversière ", **apaleko xirribika** , gaita. Herria

18 gizon eta emazte kantarik iragan igandean gure elizan eman daukute kantaldi eder bat organo eta **apaleko xirribika** batekin ere. Herria

4 ***behe apal***

Sekretu hark ematen zion zentzua, pittinka-pittinka luzatuz zihoan **behe-apaletako** liburu-ilarari; sekretu hark taxutzen zituen Enrikeren egintza, interes, barne-bulko egunerokoak. Iñaki Iñurrieta

5 ***goi apal***

Liburutegiko **goi** apaletara begira geratu zen Enrike. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
apalen artean (4); **apalen batean** (6); **apalen ondoan** (3); **liburu apalen** (3); **talde apalen** (5); **tasa apalen** (3)
apaletako liburuak (3)
goiko apaletara (3)
liburuak apaletatik (4)
apaletik hartu (4)

---

apalagotu, apalago(tu), apalagotzen du *ad* apalago bihurtu.

Begiak **apalagotu** egiten zitzaizkion Ritari Hans gogora ekartzen zuen bakoitzean: ninietako beltza grisaskatu eta, sekula inori hitzik esan gabe, bazterren bat bilatzen zuen urjentziaz, malkoen lasaitua sentitzeko. Hasier Etxeberria

-Eskerrak zuri, gazte. -Eta ahotsa **apalagotuz** -: Eskerrak Jainkoari. Patxi Zubizarreta

Izatez literatur maila **apalagotuko** balute bezala, idazle kaskarren ateraldi txepelak izango balira bezala. Iñaki Arranz

---

apalaldi *(ETCn **83** agerraldi, horietatik **47** azken sei urteetan) iz* beheraldia.

Zergatik makurtzen zuen bere izate guztia, garia haizearen menpe bezala, **apalaldi** hartatik berriro jaikitzeko ahalegin handi eta mingarri baten ostean? Anton Garikano

Onar ezazu letorkizukeen guztia, izan jasankor zeure **apalaldiko** ezbeharretan. Elizen arteko biblia

Hitzaldien atalak **apalaldi** handia izan du hainbat urtetan. Berria - Kultura

Dolarraren **apalaldia** nabaritu da, urrian baino %2,9 gehiago esportatu dutelako enpresek: 90.600 milioi dolar guztira, 2000. urteko azarotik ez zuen halako kopuruetara ailegatu. Berria - Ekonomia

---

apalankatu, apalanka(tu), apalankatzen da *ad adkor* egonean jarri.

-Mugitzea komeni zaigu orduan, beste peta bat egin eta berton **apalankatu** orduko. Unai Iturriaga

Espekulazioa, gainera, erruz errazten dute krediturekin eta produktu berriekin egindako eragiketek, izan ere ordaindu gabe erostea posible baita eta baita eduki gabe saltzea ere (alegia, krediturn bidez, **apalankaturik** , argotean esaten den legez). Iñaki Heras

Beraz, inbertsioak **apalankaturik** egiten zituen, alegia, kopuru osoak ordaindu beharrean zorretan utzirik. Iñaki Heras

Lehenik eta behin, **apalankaturik** lortu dituzten dirutzak erabiliz -hitz lauz, dirua zorretan lortzeko ahalmena erabiliz- funtsak herrialde jakin bateko dirutan eskatzen du mailegua, hainbat mila milioi dolarreko balioa duen mailegua. Iñaki Heras

---

apalarazi, apalaraz(i), apalarazten **1** du *ad* apaltzera behartu.

Jainkoak **apalarazi** egiten ditu harroak, eta apaltzen direnak salbatu. Elizen arteko biblia

Ez zion neskari minik eman nahi, ez zuen **apalarazi** nahi. Patxi Zubizarreta

Badut-eta konfiantza Jaunak haien bihotzak **apalaraziko** dituela, bakeak egingo dituztela eta lehengo maitasun eta adiskidetasunera itzuliko direla. Askoren artean

Bere helburua gehiago da kontrario bat **apalaraztea** : norberaren nagusitasunaren kontrastea aurkeztuz nahastaraztea; norberaren jarreraren duintasuna eta baretasuna erakutsiz harrituta uztea. Iñaki Mendiguren

Karitate horrek ez zuen **apalarazten** hartzailea, eta ez zuen esker onaren kateez eskulotzen ere, ez baitzen beretzat, Jainkoarentzat baizik, oparia. Josu Zabaleta

Baina ez zezakeen zoriona **apalarazi** , nahiz eta jakin hobe zuela zuhurkiago jokatu. Eneko Bidegain

Apalarazirik eta mindurik sentitzen zen; ez zen mozkortuta ere sentitzen; eta bi penikekoa besterik ez sakelan. Irene Aldasoro

Ene, zenbat aberats egin duten pobre, zenbat ahaltsu **apalarazi** ! Patxi Zubizarreta

2 beheratzera behartu.

Batek prezioa goititu nahiz, besteak **apalarazi** , ez zen errex akomeatzea edo adostea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Petrolioaren prezioa **apalaraziko** dugu ondorioz. Itxaro Borda

Lehen ondorioa debot zerutiar haren begi handi lañoak **apalaraztea** izan zen. Jon Muñoz

Txoferra ere begira izanen duela irudikatzeak burua **apalarazi** dio Abeli. Pello Lizarralde

---

apalategi *(orobat **apaldegi** g.er. eta **apaletegi** g.er eta **apaltegi** g.er.)* **1** *iz* apalez osaturiko altzaria.

Ondo ezagutzen nuen nik **apalategi** hura, baina, hala ere, edo beharbada horregatik hain zuzen, miatzen hasi nintzen hezetasunak zimurtutako liburuen artean. Karlos Zabala

Okindegia oso argia zen, ispilu zabalak zeuzkan, marmol eta urrezko lanak, eta ogiak jartzeko bi **apalategi** , bata burdin landuzkoa eta beirazkoa bestea. Karlos Zabala

Gero egongelara joan zen, han ez zen ia inoiz egoten, han zegoen telebista, mahai baxua, dibana, sofa txiki bat, ate kristalduneko **apalategia** . Jon Alonso

Hasieran pentsatu nuen Angel erori zela, edo **apaltegia** erori zitzaiola, edo latak edo. Berria - Euskal Herria

Iparrera jotzen zuen aldean musika zen nagusi: pianoa, aulkitxoa, besaulkia eta **apalategia** , liburuz eta partituraz betea. Josu Landa

Sabaiko itzaletan erdi kukuturiko gauzakiek beren soslai ezagunak, lasaigarriak azaldu zizkidaten: nire liburuak lerrokatzen ziren **apalategia** , igandeetako trajea hautsetik babesten nuen armairua, aitaren gramofonoa. Alberto Ladron Arana

Horrela, merkataritzari zegozkion karpeta eta liburuetarako utzi zuen eskuin hormako **apalategia** , eta ezkerrekoa atseginezko irakurketa liburuetarako. Bego Montorio

Barrura itzulita, Joselu gelaren beste muturrean ikusi zuen, eskua laborategiko beirazko ontziteriaz betetako **apalategi** batera luzatuta. Josu Landa

Etxeko liburuak saltzeko ohitura hartu zuen, halako moduan ezen gure **apalategiak**, gutxika-gutxika, husten joan ziren. Fernando Rey

Egongelan topatu zituen Marx eta Engelsen Lan Guztien liburukiak, txukun-txukun ordenatuta Ietik XLIV ra, **apalategian**, aitaren gerrako oroigarrien eta xake-taula zaharraren ondoan. Iban Zaldua

Leone artean denbora puxka batean gelditzen zen zutik **apalategiaren** ondoan, liburu bat atera eta orri-pasaka begiratzen hasten zen, eta luzaz irakurtzen zuen, ausaz bezala, kopeta belzturik. Fernando Rey

Horrela ikasi dugu gure munduaren ezagutza ez dela maila batekoa, eta jakintza halako atal desberdinetan egituratzen dela, liburutegi batean dauden **apalategien** antzera. Pello Salaburu

Story-ko editoreak idatzi zuen bezala "bere mezu esanguratsu eta betirakoak **apalategietan** leku iraunkorra irabazi du Estatu Batuetan". Ramon Etxezarreta

Kontsultatu dituzu noizbait **apalategietan** ditugun koloretako entziklopediak, edo bankuen diruz hornitutako bilduma eder horietan ageri diren Schopenhauer-en eta Vitruvioren lanen itzulpenak? Pello Salaburu

Liburuek bertan zirauten, jakina, alfabetoaren arabera ordenaturik **apalategietan**, beren bizkar beltz edo nabarrekin eta beren etiketekin, Raimundo Silvak mairuen Lissibonaz mintzatzen ziren liburuak **apalategietan** bilatuz amaitu zuen eguna. Monika Etxebarria

Joselu heldu bitartean paper mordoa hartu zuen **apalategitik**, aldizkariak, liburu bat eta koadernatu gabeko eskuizkribuak. Josu Landa

Joanak joan nobela hartu dut **apalategitik**. Berria - Kultura

Apalategitik bospasei koaderno zahar atera ditu: "Hor dituzu zeure komikiak". Iban Zaldua

Dendako giltzak armairuaren **apalategi** batean utzita, beheko **apalategitik** hartu dut botila arrea agureari erakusteko. Javi Cillero

Besaulkitik altxatu eta **apalategira** hurbildu naiz. Iban Zaldua

Oroitzapenen hariak aginduta nire dokumentu kutunen **apalategira** joan nintzen. Edorta Jimenez

Apustu egin dezagun, beraz: aurki, farmaziaren atal handi bat janari-dendako **apalategietan** egongo da salgai. Edorta Agirre

Etxe osoko paretak margolan eta marrazkiz mukuru ziren, liburu franko gordetzen zituzten **apalategiz** beterik. Xabier Montoia

Apalategi erdian bere argazkia, Il Maestrorekin, Paduako musika eskolan. Alberto Barandiaren

Bidean, pastelak ikusi zituen, **apalategian** txukun-txukun jarriak. Koro Navarro

Halakorik! -edarien **apalategira** hurreratzeko imintzioa egin zuen. Josu Landa

Joxepa poliki jiratu eta hiru **apaletegitan** dituen flaskoak eta kaxak aztertzen hasi da. Pello Lizarralde

2 (izenondo, izenlagun eta kidekoekin)

Apalategi rokoko baten gainean bolizko erloju bat zegoen eta penduluaren ordez hiru bola doratu zituen, itzuliak ematen zituztenak alde batera eta bestera. Fernando Rey

Makramez eta egurrez egindako **apalategi** horitua. Eider Rodriguez

Sotoetan, tresna informatikoz hornitutako **apalategiak** jarriko dituzte, han gordeko dituzte milaka agiri. Berria - Harian

Zurezko **apalategi** dotorez betetako hormez gainera, mahai bikain bat zegoen, zurgin lanaz egindako grabatu bat zeukana. Jon Muñoz

Cesar Telleria postal baten bila zebilen liburudenda baten kanpoaldeko alanbrezko **apalategi** birakorrean. Harkaitz Cano

Bulego pribatua beteta zegoela aitzakia emanez, Miepek gora eraman zuen Dussel jauna; **apalategi** birakaria zabaldu, eta begietan harridura zuela gure Atzeko Etxean sartu zen. Josu Zabaleta

Del Valle, mirespen oihu ttikiak botaz, lasterka hurbildu zen zurezko **apalategi** astunak betetzen zituen disko bilduma oparora. Alberto Ladron Arana

Maria Sara doktoreak txosten bilduma bat hartu zuen bere ondoko **apalategi** baxu batetik. Jon Alonso

Apalategi zamatu hauetan milaka eta milaka orrik itxaroten dute hasierako jakinmin baten dirdira. Jon Alonso

Horrela bada, gure aitak aukerarik txikiena izan zuenean, Unamunoren obra guztia erosi eta etxeko **apalategirik** berezienean jarri zuen. Ana Urkiza

Angelaren eskuak botila **apalategi** hautseztatu baten gainean utzi eta, nire ondotik igaroz, aurrera jarraitu zuen, sonanbulu baten ibileraz, kondenatu baten begirada galduaz. Alberto Ladron Arana

Banbuzko **apalategi** bat zegoen atearen ondoan, gelako sarrera babestuz eta hainbat oroigarri txiki eta maitagarriri aterpe emanez. Javi Cillero

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure gelako mekano-**apalategi** handian kokatu ditut diskoak, han eta hemen. Harkaitz Cano

Kordoi bati tiratu zion eta, bat-batean, zinema-oihal bat agertu zen sabaitik nire pareko liburu-**apalategian** behera. Anjel Lertxundi

Itzultzen denean, liburu-**apalategiaren** aurrean aurkitzen du zutik, burua alde batera okertuta, izenburuak irakurtzen. Oskar Arana

Bi agente sekretu bagina bezala, gure neskatoa eta nerau liburu-**apalategietako** baten atzean ezkutatu ginen eta honako elkarrizketa hau entzun genuen: [...]. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apalategi bat (8); **apalategi batean** (3); **apalategi batera** (3); **iñaki apalategi** (8); **jaione apalategi** (8); **jokin apalategi** (8); **joxemartin apalategi** (4); **ur apalategi idirin** (10); **x ur apalategi** (8)

gelako apalategian (3)

jaione apalategik (3); **jokin apalategik** (4); **ur apalategik** (7); **zuen apalategik** (3)

apalategira joan (3)

---

apaldegi ik **apalategi**.

---

apaldu, apal(du), apaltzen **1** da/du *ad* apal, umil bihurtu.

Jeremias profetak Jaunaren izenean hitz egin zion arren, Sedekias ez zen **apaldu**. Elizen arteko biblia

-Ikusi al duzu nola **apaldu** den Akab nire aurrean?

"Ikusi al duzu nola **apaldu** den Akab nire aurrean? Hara, nire aurrean **apaldu** denez gero, zoritxarra ez diot bera bizi den artean bidaliko, bere semearen egunetan bidali diot zoritxarra haren senitarteari. Elizen arteko biblia

Jainkoak indargabetu eta **apaldu** egin nauenez, ez didate batere begirunerik. Elizen arteko biblia

Begitartea **apaldua** zuen, boza ahuldua, eta jarrera berariaz egokitua; behakoa ordea eztia zuen, eta usu nigan du finkatu. Jon Muñoz

Israelgo buruzagiek eta erregeak, **apaldurik**, aitortu zuten: -Arrazoia du Jaunak. Elizen arteko biblia

Begira, anaiok, Jainkoaren apaltasuna eta zabaldu hari zeuen bihotza; **apal** zaitezte zeuek ere, berak goraltxa zaitzaten. Askoren artean

Jainkoak agindu du mendi garai oro eta betidaniko muinoak **apal** daitezen, eta sakanak bete, lurra berdintzeko, Israel seguru ibil dadin, Jainkoaren ospeak gidaturik. Elizen arteko biblia

Horregatik, haren alde otoitz egiteko erregutzen dizut, Jainkoaren errukiak bihotza **apal** diezaion. Askoren artean

Biluzik sentitu nintzen, biluzik edo okerrago: gabeturik, **apaldurik**, umiliaturik. Jon Alonso

2 da/du *ad* beheratu.

Bildu nahian, **apaldu** zara eta berriz xutitu zarelarik, izarrak ikusi dituzu. Ramuntxo Etxeberri

Indigenen arabera, ordea, agintariak sinesgarritasuna galdu du inkesten arabera, **apaldu** da herritarrek presidenteari ematen dioten sostengua. Berria - Mundua

Handik aurrera txuri-urdinek behera egin zuten fisikoki, **apaldu** egin zen euren bultzada, eta Bartzelona askoz erosoago aritu zen, atzealdean baloia ukitu eta ukitu, zuloa noiz agertuko zain. Berria - Kirola

Ez, ez naiz ni izango idazleari merituak ukatuko dizkiona eta inor ere **apalduko** dudana, behar ez denean gainera. Pello Salaburu

Eskopeta-muturra **apaldu** zuen orduan. Inazio Mujika Iraola

Txakurrek belarriak **apaldu** eta aurreko hanken gainean jarrita zeuden begira. Anton Garikano

Frantxuak kopeta **apaldu** zuen. Itxaro Borda

Emaztea so gelditu zitzaion, betazalak **apaldu** eta ezpainak busti zituen mintzatu aitzin. Elena Touyarou

Burua **apaldu** nian, eskuarekin ahoa tinkatuz. Daniel Landart

Burua **apaldu** eta urrats luzean zeharkatu nuen erredakzioa, ezker eta eskuin beldurtu antzo begiraka. Aingeru Epaltza

Pentsakor eta kezkaturik, burua **apaldu** zuen. Patxi Zubizarreta

Gogoan dut halaber amaren jardunen ondorengo nire jarrera: burua **apaldu** eta isildu egiten nintzen. Anjel Lertxundi

Vasilik urrundik begiratu zion Vernerri, ezagutuko ez balu bezala, eta begiak **apaldu** zituen. Jose Morales

Sortu zuten zalaparta ez da oraindik **apaldu**. Txema Ramirez de la Piscina

Orduan, ahotsa ia xuxurlaraino **apalduz**, Aurorak erantsi zuen, "oso erlijiosoa da". Oskar Arana

-Proba ezak -erantzun dio Joxek ahotsa **apaldu** gabe sakeletan zerbaiten bila ari den bitartean. Pello Lizarralde

-Ihesean? -Demetriok parejari begiratu ondoren, eta ahotsa **apalduz**. Pello Lizarralde

Kirxa nahitara berandutu zen, hau ikusi, bestea ikusi, eta, segidan, ahotsa **apalduz** zuzendu zitzaion gazteari: [...]. Patxi Zubizarreta

Hitza esana zegoen; ezin nuen atzera egin, eta boza **apalduz** gure lagunaren izena ahoskatu nuen: "Hankapalo". Xabier Mendiguren Elizegi

Manolok burua eta boza **apaldu** zituen, beldur antzean inguruko mahaietatik belarri-luzeren batek deus adituko ote. Aingeru Epaltza

Mintzoa **apalduz** segitu zuen, nik ez aditzeko dudarik gabe. Janbattitt Dirassar

Doinua berehala **apaldu**, eta ahapeka hitz egin zuen, hitzak ondo ahoskatuz. Jon Muñoz

Minak, **apaldu** beharrean, are gehiago harrotu ninduen. Aingeru Epaltza

Biltzen ari zen caporal tabakoz osatu zigarretara begiak **apaldu** zituen zaharrak. Itxaro Borda

Nik lehenik begiradari eutsi nion, baina gero begiak **apaldu** nituen. Edorta Jimenez

Maianak soa **apaldu** zuen eta konturatu zen oinezkoen zebra-pasabidetik hamar bat zentimetrotan zegoela; ez zuen erraz ulertzen txofer ahozabalaren ohar-sail gutxieslea. Itxaro Borda

Ahotsa **apaldu** zuen, bisaiak halako keinu teatral bat bereganatzen zuelarik. Aingeru Epaltza

- **Apaldu** telebista zahar horren bolumena, ez dit eta lagun hauekin lasai hitz egiten uzten! Aitor Arana

Nire indarrak **apaldu** ditu bere ahalmenaz, nire egunak urritu. Elizen arteko biblia

Eta zuk, Belxatzar, haren semeak, hori guztia jakin arren, ez duzu zeure burua **apaldu** nahi izan. Elizen arteko biblia

Makurtu beharko du, bai, gizakiak, eta bere burua **apaldu**; begiak jaitsi beharko harroek. Joxerra Garzia

Belarriak sentikortasun hobea du 1.000 Hz eta 4.000 Hz bitarteko maiztasunetan, eta sentikortasun hor **apaldu** egiten da eskalaren bi muturretan. Irene Aldasoro

Zinezko banidade zaildu gordea baino askoz nazkantegoa duk nork bere "egoa" **apaldu** ustez harrotu egiten duen banidade populatxero hori. Patziku Perurena

Aitak bere harrokeria **apaldu** eta gure ama eskean osaba ahozabalenera bidali behar izan zuen laguntza lortzeko. Pello Lizarralde

Arratsa **apaldu** arte ez ginatekeen itzuliko. Aingeru Epaltza

Argia **apaldu** ahala urritu dira marmarrak belagietan, klaskadak oihanean, hegaldiak eta karrakak haitz artean. Pello Lizarralde

Gurekin ikasgela ez partekatzeak ez zion **apaldu** gureganako atxikimendua. Aingeru Epaltza

Bi edo hiru egun ematen zituen ganbaran zain, Federicoren sua noiz **apalduko**, ibili luzeko itsasontzien abentura liburuak hartuta. Jose Morales

Eskoziako goi bilerarekiko ikusmina **apaldu** du Ekonomia ministroak. Berria - Harian

6.000 lanpostu sortu ziren; ordea, gazteen enplegu tasa **apaldu** egin zen, Azkarragak jakinarazi duenez. Berria - Ekonomia

Azken hilabeteetan esne ekoizpena %8z **apaldu** da eta horrelakoetan, ontsalaz, prezioa igotzen da. Berria - Ekonomia

Pilotariei hilabetez **apaldu** diete zigorra, baina araudiak, arazoaren muinak, indarrean dirau. Berria - Kirola

Joan den martxotik zortzigarren hilabetea da langabeen kopurua **apaldu** dela. Berria - Harian

Orain **apaldu** da pittin bat giroa. Berria - Harian

Argia **apaldu** egin zen. Monika Etxebarria

Atzeko gazte haren buru argiak **apalduko** luke eguzkiaren argia ere... Anjel Lertxundi

3 (adizlagun baten eskuinean)

Ikuskizun dago kasu hauen bilakaera, baina orain arte, sintomak nabarmen **apaldu** zaizkie, eta lobotomiaren ondoko portaera-arazo txikietariko batzuk baizik ez dituzte nabari. Xabier Olarra

Ikuskizun dago kasu hauen bilakaera, baina orain arte, sintomak nabarmen **apaldu** zaizkie, eta lobotomiaren ondoko portaera-arazo txikietariko batzuk baizik ez dituzte nabari. Xabier Olarra

Ahotsa ia erabat **apalduz**, seigarren urteko inork ez entzuteko moduan, kuxkuxeroaren mapari buruzko guztia kontatu zien. Iñaki Mendiguren

Gaztea, burua baiezka **apaldurik**, pauso bitan hurbildu zait Buruak arras **apaldurik**, labur eta petral mintzo ziren. Koldo Izagirre

Era horretan azpiproduktuaren mailara **apaldu** da irudikapena, arbuiatzekotzat ikusi ez bada, hala ere. Josu Zabaleta

Prezioak supituki **apaldu** ziren eta nehor ez zen Bekatuaren salatzera deliberatzen. Itxaro Borda

Betazalak ahalkez **apaldu** nituen: behin-berriro maitasunaren sareetan harrapatua nintzen, hegorantz doan urzo gaixoaren gisa. Itxaro Borda

Pozik entzungo bainituzke salaketa horiek dagokien neurrira **apalduko** lituzkeen kontsolamenduzko ahots batzuk. Josu Zabaleta

Horien arabera, Ipar Euskal Herrian izugarri **apaldu** dira euskararen ezagutza, erabilera eta transmisioa. Berria - Kultura

4 (era burutua izenondo gisa)

Benetako bizitza hortxe zegoela, betile polit **apaldu** horietan. Jose Morales

Autoko leiho **apaldutik**, mazela freskoetan alhan utziak izan ziren ardien marraka ahulak preziatzen nituen. Itxaro Borda

Zurezko etxe tipitoek bi aldeetarik mugatzen zuten karrika hartu zuten, autoaren leiho **apalduetarik** bizikletekin jostetan ari ziren haur gazteen irri argiak beharrietan zeramatzatela. Aurelia Arkotxa

Denverrek buru **apalduak** ikusi zituen, baina ez zuen entzuten otoitzaren haria. Anton Garikano

Taxien arteko irrati juntetan asiar hizkuntzak hautematen nituen, periferikoan abiadura bizian zebiltzan autoen argiek betazal **apalduak** zurpail bilakarazten zizkidatela. Itxaro Borda

Perlazko lepokoa zintzurraren edergarri, forma zehaztezineko paparrekoa ezkerreko bularralde **apalduan** eta harri handi borobila eskuin eskuko erietan nabarmen zitzaizkion, tamainagatik ere, portretako emakumeari. Aingeru Epaltza

Lanpara piztu aurreko arratsaldeko argiaz hasi ginen biok solasean, debozio handiz eta sakratutzat ditugun kontuez hitz egiten dugun tonu **apaldu** horretan. Anjel Lertxundi

Aitaren hitz egiteko modu **apaldu** bera ere presioa egiteko modu bat da. Anjel Lertxundi

Ideia hori ez da erabat galdu, gainera, oraindik, eta horren oihartzun **apaldua** aise aurki daiteke. Josu Zabaleta

Garai joanen oihartzun **apalduak** dira inguru haietako etxe eta jauregi asko. Anjel Lertxundi

Txorien txilio **apalduak**, barkuen sirenotsak, soroen txistu eta burrunba, zakurraren zaunka, gizonaren oihua, etxe inguruan tolestuz isil-isilik. Zauriak hartu dituenean, Kristo gurutziltzatu eta **apalduaren** bizipena izan du Frantziskok. Anton Garikano

Dabid atzetik etorri zitzaidan, isatsa **apaldua** duen txakurraren antzera. Patxi Zubizarreta

5 (era burutua izen gisa)

Apalduak goratu egiten ditu, bihotz-eroriak salbamenera jasotzen. Elizen arteko biblia

Eskerrak eman zizkion anaiekin batera Jainko ahalguztidunari, **apalduak** goratzen eta bihotz-eroriak salbamenera jasotzen dituenari. Askoren artean

6 ***arku apaldu***

Patio horretatik eskailera zabal bat abiatzen zen, kanpoko aldetik, harri zurizkoa, eta lehenengo solairura iritsita, **arku apaldu** betetik igaroz, eraikinean sartzen zen. Josu Zabaleta

7 ***belarriak apaldu***

Txakurrek **belarriak apaldu** eta aurreko hanken gainean jarrita zeuden begira. Anton Garikano

8 ***hazkundearen kurba apaldu*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

R 0.9 tasarekin, **hazkundearen kurba apaltzen** ari delako seinalea genuke, kutsatu bakoitzeko ez da doi-doi beste bat sortzen ari populazioan. ETC-entziklopedia

9 ***kurba apaldu*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Kurba apaltzea edo kurba lautzea osasun publikoaren kontzeptu zentrala da 2019-20ko koronabirus pandemiaren kudeaketan lotua. ETC-entziklopedia

R 0.9 tasarekin, Hazkundearen **kurba apaltzen** ari delako seinalea genuke, kutsatu bakoitzeko ez da doi-doi beste bat sortzen ari populazioan. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahotsa apaldu du (4); **ahotsa apaldu zuen** (15); **anitz apaldu** (3); **apaldu behar** (6); **apaldu beharrean** (5); **apaldu da** (23); **apaldu dela** (9); **apaldu den** (3); **apaldu dira** (9); **apaldu direla** (3); **apaldu ditu** (6); **apaldu dute** (4); **apaldu egin dela** (3); **apaldu egin zen** (7); **apaldu egin ziren** (5); **apaldu egin zuen** (3); **apaldu egingo** (6); **apaldu egiten** (8); **apaldu ez** (3); **apaldu gabe** (8); **apaldu nahi** (7); **apaldu nuen** (3); **apaldu zen** (10); **apaldu zeure** (3); **apaldu ziren** (4); **asko apaldu** (4); **aurrean apaldu** (6); **begiak apaldu nituen** (3); **begiak apaldu zituen** (7); **berehala apaldu** (3); **betazalak apaldu zituen** (3); **burua apaldu zuen** (15); **doi bat apaldu** (3); **erdira apaldu** (4); **ere apaldu** (4); **ez da apaldu** (5); **kopeta apaldu** (3); **kopurua apaldu** (6); **laster apaldu** (3); **nola apaldu** (3); **pixka bat apaldu** (3); **prezioa apaldu** (3); **zerga apaldu** (3); **zertxobait apaldu** (6)

apaldua da (3); **apaldua du** (3)

apalduko dira (3); **noiz apalduko** (3)

ahotsa apaldurik (4); **begiak apaldurik** (3); **burua apaldurik** (4)

burua apalduta (3)

ahotsa apalduz (19); **apalduz joan** (6); **boza apalduz** (3); **burua apalduz** (5)

apaltze bat (5); **apaltze hori** (9); **prezio apaltze** (3)

prezioen apaltzea (3); **zergen apaltzea** (5)

ahotsa apaltzen (4); **apaltzen ari da** (3); **apaltzen ari dela** (3); **apaltzen da** (6); **apaltzen joan** (4); **apaltzen saiatu** (3); **apaltzen zela** (3); **apaltzen zuela** (4); **apaltzen zuen** (3); **apaltzen zuten** (3); **batez apaltzen** (3); **begiak apaltzen** (3); **burua apaltzen du** (3); **prezioa apaltzen** (3)

---

apalesgarri *izond* apalarazten duena.

Baina Jainko hori motz eta ilun gelditzen zen nonbait zenbaiten belarrirako, eta **apalesgarria** eta ttikigarria ere bai beharbada. Iñaki Segurola

---

apaleste *iz* apaltzat hartzea.

Entzun ninduen orduko Mary Balesterek paperak eskatu zizkidan eta Euskal Herrian bizi nintzela oharturik, ene paranoia naturala inarrostea lortuz, ezpainak **apaleste** gisa zimurdikatuz ondorioztatu zuen: [...]. Itxaro Borda

Bortxak, mehatxuak eta **apalesteak** zurkaiztu zuzentasunaz ari baldin bahaiz, nik ez diat hire lurrik nahi. Itxaro Borda

Badakit, horma guztietarik, nagusigoaren mespretxu eta **apaleste** lerroak lerratzen zaizkiola. Itxaro Borda

Nonbait irakurri nuen, konpetizio konpetenteek, kitzika moralek eta erdeinuzko **apaleste** zerrendek kudeatu mundu honetan, egunerokotasun dorpetik ihes egiteko molderik egokiena eta seguruena depresioa zela. Itxaro Borda

Handitzean, nahiko paranoiko bilakatu zen, bidegabeko ohar eta **apalestez** barneko argizaiola hiltzen saiatzen ziren urte dorpeetan, gogapen salbatzaile horren altxorrari esker zepoaren mehatxutik libratzen zela. Itxaro Borda

---

apaletegi ik **apalategi**.

---

apaletsi, apalets, apalesten du *ad* apaltzat hartu.

Haiek goretsi duten meritua ez dut nik **apaletsi** nahi hemen, baina programa horien edukiak egokiak dira? Pello Salaburu

Nitaz ahaztea nahikoa ez eta **apaletsi** ere behar ninduzun. Eduardo Matauko

O, zuk, zeure arima betiere sentikorra huts egin duzunean ere bertutearen lagun atxiki duzun horrek, begirunez hartuko duzu nire egoera dolorezkoa, ez duzu nire erregua **apaletsiko** ! Ez dut gutxietsi nahi zure baitan ematen didazun garrantzia, are gutxiago nahi dut **apaletsi** neure burua: besterik gabe adierazi nahi dut, une jakin batean, norbait maitatu beharra sentitu zenuela zure bihotz barnean, maitatu behar hori izan zela zure sentimenduen motorra, eta ni izan nintzela, horrenbestez, maitatu behar horren ezinbesteko osagaia. Jon Muñoz

Zeure obra **apaletsiko** duzu? Jon Muñoz

Adiskidantza **apalesten** duzu; eta ero-ero hordikeriari emana, kontutan hartu gabe malurak eta ahalkea, ez duzu plazerrik eta kaltedunik baizik bilatzen. Jon Muñoz

Nahiz Apaltasuna Hantustearen kontrakoa den, hantustetsuarenganik biziki hurbil dabil bere burua **apalesten** duena. Piarres Xarriton

Nik, behintzat, gaztelania ere badut aldamenean, eta ez dut batere gogorik hizkuntza hau gutxiesteko, hizkuntza bat goraipatzeak ez baitakar berarekin bestea **apalestea**, batzuek kontrako iritzia baldin badute ere. Pello Salaburu

Bortxak, mehatxuak eta **apalesteak** zurkaiztu zuzentasunaz ari baldin bahaiz, nik ez diat hire lurrik nahi. langabeziak, alkoholak, hainbat gerla eta izanaren ahalkeak, frantses gorakoien eta euskaldun suhar zein zintzoen aldetik **apalesteak** larrantzi eta urratu jendeen aurpegiak oro halaber dantzan itxuratzen nituen orduan. Itxaro Borda

Eta hori ez zen **apalestegatik** , edo gutxiesteagatik, orain batzuekin gertatzen den gisa eta horretan tematzen badira ere, baizik euskaldun anitzen ohitura naturala. Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

burua apalesten (4)

---

apalgarri *izond* apaltzen edo apalesten duena.

Orduan, tratu krudelak, ankerrak eta **apalgarriak** debekatu zituen Kongresuak. Berria - Mundua

Gaixoekin izandako hainbat urtetako esperientziaren ondoren, bai bainekien errukia bertute bat dela, errukitzaileak maiz ezkutatu eta mozorrotu beharrekoa, errukituari **apalgarri** eta iraingarri gerta ez dakion. Joan Mari Irigoien

apalgune *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)* *iz* besteak baino beherago dagoen lur eremua. ik **sakonune**.

Gaua astiro ari zen bazterrak betetzen, aurrena lurra eta hareazko **apalguneak**, buztinezko harresien oinetan, gizon geldien aurrean, denden oihalen azpian, txakurrek lo egiten zuten zuloetan, putzuetako uraren sakontasun urdinean. ETC-literatura, saiakera

LouisPhilippe zubiko pezoian esertzera hoa eta arkupetan zurrunbilo bat nola egiten eta desegiten den begiratzen duk, onil moduko **apalgunea**, beti eta beti husten eta betetzen zutoinen aurrealdean. ETC-literatura, saiakera

Bide bazter eta **apalgunetako** pasagiak tapatuak eziniganezko heinean. ETC-literatura, saiakera

Baziren jadanik 500 hil kondatuak egun horietan beretan Bangkok hiriaren **apalgune** ainitz hartuak baizituzten urek zernahi zikinkeria, hiliki eta itsuskeria ekarriak zituztela berekin, 12 miliuneko bat jende bizi diren **apalgune** horietan. ETC-prentsa

Gu gelako **apalgunean** ginen, oholtza aitzinean. ETC-prentsa

Iparraldeko itsasbazterra ibiliz, esate baterako, karbonoa, oxigenoa eta neona gailurrak dira, eta nitrogenoa eta fluorra, berriz, oro har jaitsiz doan lurzoruaren **apalguneak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erdi Aroan, muino baten **apalgunean** kokaturik, gotorleku dorredun gaztelu bat altxatzen zen. ETC-entziklopedia

Itsasaldeko mendikatearen hegoaldean, sakonune bat osatzen dute kanpoaldeko igarobideak (Oriako sektorea) eta Zarauzko **apalguneak**. ETC-entziklopedia

Segurtasun fisikoko neurriak ezarri: suaren aurkako sistemak, datuak tratatzeko zentroen zaintza, uholdeen babeserako sistemak, tentsio **apalguneen** eta gaintentsioen aurkako babes elektrikoak, sarbide kontrol sistemak, etab. ETC-entziklopedia

---

apalgura *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* apaltasuna, umiltasuna.

Orain lehen baino areago, gazteek keinuak eta hitzak literalki interpretatzen dituztela iruditzen zaio eta, joera ziurrenik konplexatu baten poderioz, hartaz libratu ezin, **apalgura** hezi batek aginduta ezintasun propioak disimulatu ordez areagotzen dituenean, edo dohainak erlatibizatzen, ez direla gauza umiltasun faltsua atzemateko. ETC-literatura, saiakera

---

apalik 1 *adlag* apalki.

Roboamek **apalik** bere errua aitortu zuelako, Jaunari baretu egin zitzaion haren kontrako haserrea eta ez zuen zeharo hondatu, gauza onik ere bai baitzen Judan. Elizen arteko biblia

Apalik eta koxkarik apainduenen pare, eskaparate luzituagorik! Pello Zabala

-Bai aita -ihardesten zion **apalik**. Itxaro Borda

Hriek arretaz aztertu eta **apalik** ikasten dituenak, irakatsi salbagarriez jantzita, bizkor barrenduko duela haren jakinduria gorena. Askoren artean

-Ongi da, dena esanda dago -Harland **apalik** altxatu zen. Lopez de Arana

2 *adlag* behean, beherantz.

Ostiral goizeko hamarretan, tanko, gu, ahokukoak sartu ginelarik, buruak **apalik**, eliza guztia jadanik kokorreraino betea zen. Daniel Landart

Umil eta biribil beharriak **apalik**, dirutegian ulirik bertzerik ez dute kausitu eta dire petzero gelditu absoluzionik gabe eta dirurik gabe. Herria

Burua **apalik** amak hirian hartzen zuen bere lehenbiziko afaria semearekin partekatzeari ekin zion. Itxaro Borda

3 ***apal-apalik*** *adlag* guztiz apal.

Eta hil-herriko ixiltasunean, gure lore sortak **apal apalik** aipatuko du maitasunak segitzen duela gure etxean. Herria

Laser irakurgailuan Jean Jacques Goldmanen KDa jarri nuen, **apal-apalik**, auzoak ez iratzarrarazteko gisan. Itxaro Borda

-Joan aurretik laranjatxo bat jan nahi nuke -eskatu zuen **apal-apalik**. Patxi Zubizarreta

---

apalkeria *iz* apaltasun gaitzesgarria.

Ez bainituen atsegin ez aitaren zakarkeria, ezta amaren **apalkeria** ere. Joan Mari Irigoien

Honek ere ez baitu koadro simetriko eta errazegia besterik egiten, amodioari eta harrotasunari izaera atsegina emanez eta gorrotoari eta **apalkeriari** atsekabea; inoiz gizadiaren atsegin iturri oparo izan ez balira bezala gorrotoa eta **apalkeria**; eta amodioak eta harrotasunak sekula inor atsekabetu ez balu bezala. Patziku Perurena

Apalkeria hutsez ari haiz. Antton Olano

Oroitu zen **apalkeria** berdinaz ito zela, zuela aspaldi Baiona bazter hauetan makisarrek tiroz eho zuten Josetekin larrua lehen aldiz jo zuenean. Itxaro Borda

---

apalketa *iz ipar* beherapena.

Oposizio guziak salatzen du elkarteek eskuratuko duten diru laguntza munizipalaren **apalketa** %-eko bostean aurten. Herria

Beste elkarte guziek aldiz bosteko **apalketa** dute, Aviron elkarte amaturrak ere bai. Herria

Diote ofizialek **apalketa** horri esker lan kargak azkarki emendatu ahal izan dituztela, hego aldekoei lehia aiseago atxiki ahal izan dietela. Herria

Hala ere ez omen da **apalketa** iraunkorra kargudunen arabera. Herria

---

apalki 1 *adlag* apaltasunez.

Baina bakanak dira, **apalki** ari direnak, eta horregatik ere egiten dira harrigarri eta ezagun. Pello Salaburu

Aurretik, dena dela, Nabarreria kaleko "El Requeté" jatetxe apalean mokautxo bat karlista bolondres zalapartari batzuen ondoan afari-lege gisa **apalki** hartu ondoren. Txillardegi

Apalki hitz eginez, esan zien: Zertan zaudete hemen, egun osoan lanik egin gabe, gerokoaren inolako ardurarik gabe? Askoren artean

Apalki urrutiko lurraldeetara joan nahi izan zuen, berak beste zenbait anaia bidali zituen bezala. Askoren artean

Ez zen ez ozenki ez **apalki** mintzatzen, gisakoa zen tonuan baizik. Jose Morales

Bere barruan **apalki** aitortu zuen oker egin zuela San Frantziskoren agindua zentzugabekotzat jotzean. Askoren artean

Orduan Sartrerekiko jaiera nuen, interesa, eta Unamuno existentzialista ere interesantea zen niretzat; horien bidetik, **apalki**, zerbait egiten saiatu nintzen. Berria - Kultura

Apalki eskatu zion eman ziezaiola haren anaiari grazia hori Kristoren eta San Frantzisko haren morroiaren maitasunagatik. Askoren artean

Orain, baina, aitortu behar dut, eginbide hori beterik, ene gogo-irrikak berriro dira Frantziarantz aihertzen, eta hartakotz berorren baimen eta grazia dut **apalki** eskatzen. Juan Garzia

Anai Pazifikok, anaien burutazio okerra ezagutu zuelarik, **apalki** azaldu zien dena, esanez: [...]. Askoren artean

Izenda liteke giza patuaren zitala, izenda liteke **apalkiago** tentelkeria: [...]. Markos Zapiain

Zorionekoa berehala aitzakiak ateratzen ez dituen zerbitzaria, baizik eta errugabe izanik ere bekatuaren lotsa eta errieta **apalki** eramaten dituena! Askoren artean

Ebanjeliozko bizitzaren eta kristau-alaitasunaren oinarria barne-pobretasuna da, nor bererik ezer gabe **apalki** bizitzea, eta horixe da gizakiaren egiaren neurria. Askoren artean

Hark **apalki** aitzakiak jarri zituen, esanez ez zuela inola ere bere burua gai ikusten. Askoren artean

Guk guztiok edonon, nonahi, ordu oro eta noiznahi, egunero eta etengabe, sinets dezagun benetan eta **apalki**, bihotzean gorde eta maita dezagun, ohora, adora, zerbitza, gorets eta bedeinka, aintza eta goraipa, handiets eta esker dezagun Jainko betiko goi-goiko eta gorena, Hirutasuna eta Batasuna, Aita eta Seme eta Espiritu Santua. Askoren artean

Maiz, hotzik handieneko egunetan, beharrezko zuten ostaturik ez aurkitzean, labeetara biltzen ziren edo haizpe eta kobazuloetan **apalki** babesten. Askoren artean

Apalki eta maitekiro pentsatzen badugu atezain hark benetan ondo ezagutzen gaituela eta Jainkoak hitz eginarazten diola gure kontra, o anai Leon, idatz ezazu hortxe dagoela poz betea. Askoren artean

Apalki milesker, jauna. Juan Garzia

-Nik oso gutxi edaten diat normalean -esan zuen Chandler Txikik **apalki**-. Irene Aldasoro

-Bai - **apalki** nik. Xabier Mendiguren Elizegi

Frantzisko atera egin zen **apalki**. Askoren artean

Musika-haria ari, itxuraz, bizpahiru bozgorailutatik batera oso **apalki**. Txillardegi

-Ez, ez dute irekitzen -erantzuten zuen gaixoak, lehen bezain **apalki**. Jose Morales

2 maila apalean.

Sektoreko eta merkatuko enpresaren inguruko iritzia **"apalki** hobetu" dela adierazi zuen, "%4k uste dute merkatua susperraldi indartsua izaten ari dela". Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anaiek apalki (4); **apalki aitortu zuen** (3); **apalki aitortzen** (3); **apalki bere** (4); **apalki eskatu zion** (6); **apalki eskatzen** (5); **apalki eta arren** (4); **apalki obeditu** (3); **zen apalki** (5); **zion apalki** (5); **zioten apalki** (3); **ziren apalki** (4); **zuen apalki** (10)

---

apalkiro *adlag* apalki.

Nobela honek letra garaikideen panorama errotik eraberritzen du, eta kritikak hori hala dela **apalkiro** baieztatu beste erremediorik ez du izanen. Iñaki Segurola

Hor jende informatuak ez du bere ezina eta ezjakintasuna **apalkiro** aitortu beste erremediorik. Iñaki Segurola

-Anaia Martin! -esan nion **apalkiro**, ez bainuen bortizki iratzarri nahi. Xabier Mendiguren Elizegi

---

apalkuntza *iz* apal bihurtzea, beheratzea.

Ikusten da aldarte gozakaitza dutela, zakarrak direla keinuetan eta hitzetan, harroak, **apalkuntza** bat jasateko gai ez direnak. Joan Mari Lekuona

Bada ahulik, laguntza beharrean izaten denik, baliabideak urri eta beharrak ugari dituela, baina Jaunak onginahiz begiratzen dio eta bere **apalkuntzatik** ateratzen. Elizen arteko biblia

Edonon topatzen ditudan izaki anonimo horiengan, adorearen edo **apalkuntzaren** zantzuak konturatu gabe ere daramatzatenengan berraurkitu dut nire aitaren izaeraren errealitate ahaztua. Joseba Urteaga

Sutan probatzen baita urrea eta **apalkuntzaren** arragoan Jainkoak begiko dituenak. Elizen arteko biblia

Berradiskidetzea ezin da nahastu kontu-garbitze, mendeku edo **apalkuntzarekin**. Berria - Euskal Herria

Egia esan, irakatsi horiek badute jakinduri tankera, erlijiotasunaz, **apalkuntzaz** eta gorputza gogor hartzeaz ari baitira; baina ez dute ezertarako balio, norberekeria asetzeko ez bada. Elizen arteko biblia

---

apalmendu *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* apaltzea, umiliatzea.

Jainkoa, azti beltzak irudimenezko arpean eginiko ametsa, are haren eskua dardarka dagoela beraren azken **apalmenduan** ere. ETC-literatura, saiakera

Apalmenduaren lotsa gainditzeko eta, bide batez, bi emakumeen aitzinean bere buruaren jabe dela argi gera dadin, astia daukala esan du Harri Gabilondok mehatxua egin dionean. ETC-literatura, saiakera

Maravalen elkarrizketan izerditzen da konplazentziazko **apalmendua**. ETC-prentsa

Hizlariak ere, gaia burgoitasunezko **apalmenduz** aurkeztu du, jendetzaren trufa konplizea eraginez. ETC-prentsa

---

apalño *izond* apaltxoa.

Larunbateko ibilaldia, aroa ere alde, nahiz halako haize **apalño** batekin, gaitza izan da. Herria

---

apaltasun *izond* apala denaren nolakotasuna.

Indar handiz nabaritzen da testuan Frantziskoren nortasuna eta ideala: bereziki, Kristoren pobretasuna eta **apaltasuna** bizitzeko asmoa, Ebanjelioko anaitasun-ideala, Elizarekiko elkartasuna, anaien askatasuna beren aukerak egiteko eta bokazio erlijiosoa bizitzeko eratzen duen modu zehatza. Askoren artean

Kristoren pobretasun eta **apaltasunaren** jarraitzaile sutsu bezala azaltzen zaigu, denentzat eredu izateko gogotsu, anaiei hitzemandako bizimoldean leial irautera deitzen aspergabe. Askoren artean

Baina Frantzisko santuak, ordea, ahal zuen **apaltasun** handienaz uko egiten zien argudioei, ez haren proposamena gutxiesten zuelako, baizik eta, desira altuagoak eramanik, beste zerbaiten bila zebilelako. Askoren artean

Apaltasun santuak garaitzen ditu harrokeria eta gizaki munduzale guztiak eta munduko gauzen zalekeria guztia. anaiak egindako hutsegiteagatik ez bedi harekin haserre, baizik eta eroapen eta **apaltasun** guztiz onean zentza beza eta eraman. Askoren artean

Bere buruaren mespretxua eta **apaltasun** egiazkoa. Askoren artean

Oi **apaltasun** gorena! Askoren artean

Zuzen, onest eta onuragarrietan jarduten zuten, beraiekin harremanak zituzten guztiei pazientzia eta **apaltasun** etsenplua emanez. Askoren artean

Apaltasunez erantzun galdetzen dizuetenei, bedeinkatu erasotzen dizuetenak Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apaltasun eta maitasunagatik (4); **apaltasun eta pobretasun** (5); **apaltasun eta pobretasunaren** (3); **apaltasun hori** (3); **apaltasun ororen** (4); **apaltasun osoz** (12); **apaltasun santuak** (6); **apaltasun santuaren** (8); **apaltasun txit** (4); **bere apaltasun** (5); **pazientzia eta apaltasun** (3); **zuek erakutsitako apaltasun** (4); **zuen apaltasun** (5); **zure apaltasun** (3)

apaltasuna eta pazientzia (4); **den apaltasuna** (3); **frantziskoren apaltasuna** (3); **pazientzia eta apaltasuna** (3); **pobretasuna eta apaltasuna** (4)

bere apaltasunagatik (4)

apaltasunaren bidetik (4); **santuaren eta apaltasunaren** (4)

bere apaltasunean (5)

garaietako apaltasunera itzultzea (3); **lehen garaietako apaltasunera** (3)

apaltasunez erantzun (3); **apaltasunez eta debozioz** (3)

hantusterik edo apaltasunik (3)

apaltegi ik **apalategi**.

---

apaltxago *izond/izlag* apur bat apalago.

Donibane-Garazi bazter uzten bazuten ere, damu haundirekin, halere pentsu zuten elurraren gatik hobe zela Eugitik egitea bidea, **apaltxago** izanen baitzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oro har, izartzen diren sail gehienetan kutsadura hein berean edo **apaltxagoa** ezagutzen dugu momentu hauetan. Herria

Prezioak bana beste jaz baino **apaltxago** . Herria

Galdetzen behin, ondotik tratua **apaltxago** trenkatuko badu ere... Herria

---

apaltxo[1] **1** *iz adkor* apal txikia.

Gelaren bira guztian sei zentimetroko **apaltxo** bat zegoen, eta bertan ipintzen zen oparitarako abereak hiltzeko tresneria. Elizen arteko biblia

Pepponek aurrera egin zuen, mehatxari, baina Pizzik pauso bat atzera egin eta, beheko suaren gaineko **apaltxoan** zegoen errebolber bat hartuta, Pepponeren kontra apuntatu zuen. Koldo Biguri

Eta, **apaltxo** banatan, olerkia, batetik, eta, bestetik, atzerriko liburuak, hots, eleberri errazak. Jon Muñoz

---

apaltxo[2] **1** *izond adkor* apala .

-Nire uste **apaltxoan** , horixe da zoriontsu izateko modu bakarra -adierazi du-. Patxi Zubizarreta

2 (adizlagun gisa)

Apaltxo iraungo bagenu ere pozik. Koldo Zuazo

Larraitzek, pauso bat gelarantza emanik, **apaltxo** : [...]. Pablo Sastre

---

apaltzaile *izond* apaltzen duena.

Gizarte harremanen mailaketa zehazki adierazten da hizkuntzan, eta horrek esan nahi du aditzen forma neutroaz gain, forma goraipatzaile bat dagoela, nagusia aipatzeko (nagusia zentzu zabalean ulertzen da), eta forma **apaltzaile** bat dagoela, norberaren ikuspuntua adierazteko nagusiaren aurrean. Ibon Uribarri

---

apaltze *iz* beheratzea.

Mendea bururatzean egina izan den laborarien kondaketak, berriz ere kopuruaren **apaltze** bat agertuko du. Herria

Bilboko portuan murrizte edo **apaltze** bat izan du trafikuak aurtengo lehen sei ilabeteetan, konduek erakutsi dutenaz. Herria

Ikastolak du **apaltze** hori behin betikotz hautsia. Herria

Lanaren **apaltze** hori Gipuzkoan eta Bizkaian da gehienik senditu. Herria

Ala berezkoa zenuen zeure buruaren **apaltze** hura? Xabier Mendiguren Elizegi

Udan zehar iritsitako gutunei arretaz erreparatuz gero, apurka-apurka suaren **apaltze** moduko bat sumatzen zela esango nuke. Xabier Mendiguren Elizegi

Frantziskorentzat oinarrizko **apaltze** eta beheratze honek Jesusen biziera osoaren barne-zentzua biltzen du bere baitan. Askoren artean

Gobernuaren oraiko politikari aski dela oihukatu dute denek, salatuz gobernuak hartutako neurriak, dela lan-kontratu berria, dela lantegi pribatisatze, dela aberatsen zerga **apaltze** . Herria

Gauzak nun nahi kariotuz doa-tzilarik, autopistaren baliatzaileak loriatzen dira prezio **apaltze** hunekin. Herria

Prezio **apaltze** horren kalte ordain gisa eskuratu beharra dituzten diru laguntzak ez die galtze guztia itzuliko. Berria - Ekonomia

Jaun horrek 75 urte ditu eta, musulmanoa baita erlisionez, Ramadan baruraren bete betean zen eta medikuek tentsione **apaltze** baten gain ezarri diote bere historia eta, gainerat, hotzaldi baten ondotik antibiotika zoinutan omen zen. Herria

Menderdi bat kasik Europa abiatua dela bere tratatu, elkar hurbilketa, muga **apaltze** eta azkenik euro berdinarekin ere! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apaltze bat** (5); **apaltze hori** (9); **prezio apaltze** (3)

---

apaluste *iz* apala dela uste duen pertsona.

Zeren eta, **Apalustearen** Tristura sortzen baita haren ezintasuna besteen ahalmenari edo bertuteei konparatzetik, haren Tristura eztituko da, hots, bera poztuko da, besteen bizioen kontenplatzeari irudimena lotzen bazaio; eta hortik dator erran zahar hau: Dohakabeak soleitzen, lagunen minak. Piarres Xarriton

---

apalxago ik **apalxeago**.

---

apalxeago *(orobat **apalxago** g.er.)* **1** *izond* apur bat apalagoa.

-Kaixo -haren ahotsa, aurreko egunetakoa bezain zoragarria bazen ere, **apalxeagoa** , ahulxeagoa iruditu zitzaidan, itzalduagoa, nolabait errateko. Alberto Ladron Arana

Lajosek, lagunkiro, besotik heldu, pasadizo barregarriak kontatu eta gonbidatu berezi-bereziaren antzera jokatu zuen, gorazarre egin behar balitzaio bezala, etxe hartako guztiak harena baino maila **apalxeagokoak** balira bezala. Ander Irizar

Kontuan hartuta Bartzelonako *melting pot* hau ez dela inondik ere kasu isolatua, ezpada Europa Mendebalde osoko fenomenoa, hiri guztietan gertatua eta herrietan ere, neurri **apalxeagoan** , sumatzen dena. Xabier Mendiguren Elizegi

Freskatze-prozesua ez da erabatekoa, eta airea 32 °C-ko tenperaturan irteten da normalean sudurretik; edo **apalxeagoan** , eguraldi hotza denean. Irene Aldasoro

Igandean gorapentzen zauku, denbora ederrean bero **apalxagoekin** . Herria

Ziklista asko eta onekin zital jokatzen du eta ez die ia arnasbiderik uzten, **apalxeagoekin** eskuzabal agertu ohi da hasieran, anker bukaeran. Berria - Kirola

Otaegi buruz-burukari famatua da, mailez **apalxago** izana gatik ere beste gisan. Herria

2 *adlag* apur bat apalago.

Apalxeago eta moxkote gelditu arren, galburutarako edo artaburutarako egoki askoak agertzen ziren gari lasto zumitzeko eta artakozkor sendokote haiek, artaburu parea alde banatara zutela. Pello Zabala

Astea, ordea, apur bat **apalxeago** amaitu du; 69,49 dolarrean, hain zuzen, astebete lehenagoko salneurria %3an gaindituz. Berria - Ekonomia

Nork zer boto izango zituen kolokan, bata besteari begira, ez dakit mus ala poker mahai batean geunden (edo txinotan, **apalxeago** jarrita). Berria - Harian

Gainera, ez da oraingo kontua -jarraitu zuen **apalxeago** -. Bernardo Atxaga

5 etan ados, 7-tan, 8-tan, 9-tan eta 10 etan ere bai, nahiz zalu eta bizi derabilaten pilota biek ere, **apalxago** Aramburuk baina beti ez duen bipil bat nabari du Biscoubyk ere, parioak alde dituela entzuten gainera. Herria

-Otto! -eta **apalxeago** , geuk bakarrik entzuteko moduan-: Nazi madarikatu hori, zer arraio... Alberto Ladron Arana

---

apalxko *adlag adkor* apal xamar.

Hobe **apalxko** , alabaina, guti ezagunarekin. Aingeru Epaltza

Aldai zutik, Saioaren koadroari zozo-zozo so, Dimasek, beti jarririk, **apalxko** : [...]. Pablo Sastre

---

apantzaile ik **apaintzaile**.

---

apapa *adlag adkor* paseatzera.

Tatamari bai etorri dela, ordea, Maria txikia goizean **apapa** ateratzeko. Jokin Muñoz

Eskerrak Tatamarik Maria txikia **apapa** ateratzen duen. Jokin Muñoz

Goazen ume esan zuen, goazen **apapa** esanez bezala. Joseba Sarrionandia

---

apar 1 *iz* mugitzen ari den edo dirakien isurkari baten gainaldean gertatzen diren burbuila txikien multzoa. ik**bits**.

Uhin berdeak **apar** bihurtzen ziren ferryaren branka biribilaren azpian. Lopez de Arana

Toki hartan, Ibai Elurtua, errekaren emariaz handiturik, Edoraserantz eta muino eta landa berdeetarantz amiltzen zen haitzen gainetik, lurrun eta **apar** artean. Agustin Otsoa

Ontzi zabala labain zihoan, izarrez ereina zirudien zerurantz ke beltzezko suge lodi bat jaurtiz; eta, gure ondotik, ura, zuri-zuri, ontzi astuna igarotzeak astindurik, helizeak irabiaturik, **apar** eta bits ari zen, bihurritzen ari zela zirudien. Gustatzen zitzaidan garagardoaren zaporea, **apar** zuri bizia, sakontasun latoi-kolorea, edontziaren horma ilun bustien barreneko mundu bat-batekoa. Josu Zabaleta

Apar zurizko hodei ibiltari, sakon, arin bat ari zen jaisten inguruan, hotsik gabe, eta aparrezko gosna lodi gor baten azpian ehorzten zituen geldiro-geldiro. Josu Zabaleta

Etzateko aulki bat erakutsi zidan, Txinako krepe **apar** -kolorezkoa, brodatu zuriz jantzia, ezagutzen ez nuen mota bateko zuhaixka kozkor batean azpian, haren orpoa hereza-belarrezko zerrenda batek inguratzen zuela. Josu Zabaleta

2 ***apar eragile*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Dena dela, nahiz eta hala sugarrak desagerrarazi, suteak ez dira erabat itzaltzen, eta hobe izaten da urari agente **apar-eragileren** bat botatzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nahiz eta kasu gehienetan atxikitutako gasa aire arrunta izan, poro itxietako isolatzaileetan, hau da, elkarrekin komunikaziorik ez duten burbuilez osatutakoetan, agente **apar eragile** gisa erabilitako gasa barnean geratzen dena da. ETC-entziklopedia

3 ***apar festa*** *(corpusean ez dago; ETCn **186** agerraldi)*

Apar festa aire librean ospatzen den jai ekitaldia da, non kanoi itxurako aparailu baten bitartez edo beste modu batez aparra zabaltzen den inguruan bildu den jendearen artean. ETC-entziklopedia

18: 00etan **apar festa** hasiko da, frontoian. ETC-prentsa

Arropa dotoreak kendu eta bainujantzia janzteko garaia izango da, 17: 30ean **apar festa** baitago plazan. ETC-prentsa

Txikienek, bien bitartean, suhiltzaileek eramango duten **apar** festan bustitzeko aukera izango dute. ETC-prentsa

Era berean, umeentzako era guztietako jarduerak bilduko dituen abentura parkea egongo da; **apar festa** , quad-ak, tirolina, arku tiroa, eta abar. ETC-prentsa

Besteak beste, **apar festa** , puzgarriak, jokoak eta musika izango dituzte. ETC-prentsa

Udaletik jakinarazi dute bazkalostean **apar-festa** egongo dela. ETC-prentsa

Goizean, ume ugari bildu zen puzgarriekin jostatzera eta aerostatora igotzera, eta bazkalostean, buruhandiek, **apar festak** eta dantzaldiak ere arrakasta handia izan zuen. ETC-prentsa

Gainera, **apar festa** ere egingo dute. ETC-prentsa

Eskaera oso zehatzak izan ohi dira: tirolina bat parkean, **apar festa** bat udan... ETC-prentsa

Astelehenean hasi ziren jaiak, haurrentzako **apar festarekin** eta puzgarriekin, eta festa giroa izango da igandera bitartean. ETC-prentsa

4 ***apar harri*** harri bolkaniko arina eta porotsua, leungarri gisa erabiltzen dena.

Ondorioz, badirudi orain esponja-harria edo Ponpeiako **apar-harria** deitzen den hori beste mota bateko harria kiskali zenean etorri zela era honetako kalitatea izatera. Santiago Iruretagoiena

Apar-harriaren portaera esplikatzeko, harriaren barnean airea harrapatuta gelditu dela esaten zuen. Berria - Gaiak

Horregatik, propietatez arinak eta porotsuak direnez, eta beren baitan hezetasunaren indarrik sartzen uzten ez dutenez, edozein pisu dutelarik ere, berez halakoak izanik, ur gainean geratzen dira **apar-harriaren** antzera. Santiago Iruretagoiena

5 ***apar sintetiko***

Beste langile batek **apar sintetikozko** kubotxoez beteko du hartza, eta hirugarren batek burua, hankak eta besoak josiko dizkio. Iban Zaldua

Itxuraz, erregai tankea isolatzeko **apar sintetikoaren** puska batek zulatu zuen transbordadorearen ezker hegala. Berria - Gaiak

Teknikariek, antza, **apar sintetikoaren** material ezberdinak itsasterakoan huts egin zuten. Berria - Gaiak

6 ***apar sortzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Garraiatzaile franko badago bazterretan, baina gogoa non da? **Apar sortzaile** izan nahi dute. ETC-prentsa

7 ***aparra bezala***

UBS bankuak 30 euroko prezio helburua jarri eta, **aparra bezala** , %12,7 igo da. Berria - Ekonomia

Burtsak **aparra bezala** gora egin du azkenaldian, baina atzo iparra galdu duela ikusi zen. Berria - Ekonomia

Aldi berean, bera baino kaskarragoak ziren beste batzuek **aparra bezala** egin zuten gorantz. Xabier Montoia

Aparra bezala egin omen zuen handik aurrera Sainz komisarioak gora, poliziaren gailurrera iritsi zen arte. Rafa Egiguren

8 ***aparrak bezala***

Baby Suggsenganako desira gogor batek gainezkatu zuen, **aparrak bezala** . Anton Garikano

Osaba Joanikoten erranetan, aitak Parisen ikasi zuen ikasi beharreko guztia: kontabilitateari eta ekonomiari zetxezkion hainbat gai, alde batetik, zeren finantzen munduan sartzea baitzen haren asmoa eta gutizia, diru egiteko eta **aparrak bezala** goiti egiteko. Joan Mari Irigoien

9 ***aparretan egon***

Brando, berriz, ospearen **aparretan zegoen** Desio izeneko tranbia bat egin zuenetik. Berria - Kultura

10 ***bizarra egiteko apar*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Feminitatea hilekoarekin lotzen baitu eta maskulinitatea **bizarra egiteko aparrarekin**. ETC-prentsa

Rabbee egongelan sartu da, belarrian erantsia dauka **bizarra egiteko apar** hondar bat. ETC-literatura, saiakera

Bizarra egiteko aparra kendu gabe agertu zitzaigun Mateo Vallejo bentanan. ETC-literatura, saiakera

Ed **bizarra egiteko aparra** kentzen ari zen aurpegitik zakurraren zaunkaren zarata indargetua etxean entzun zenean. ETC-literatura, saiakera

11 *bizarra mozteko apar*

Honako hauek, esaterako: L'oreal kosmetikoak, Johnson's txanpua, Nivea eta Sanex kremak, Gillette **bizarra mozteko aparra**, Fairy, Miston, Ariel garbigarriak.. Berria - Gaiak

12 *garagardo-apar*

Dagoeneko nabaritzen da itsas tiraina kostaldeetan: **garagardo-aparra** bezalakoxea!, diot nik. Joxe Austin Arrieta

Ezeztatzen dut **garagardo-aparrarena**, eta orain diot: beirazko kotoia bezalakoxea! Joxe Austin Arrieta

13 *goma-apar*

Hantxe, zumezko aulkietan eserita, gizon bat alkandora kakiz jantzita eta saskibaloiko txano bat buruan atzekoz aurrera jarrita, etxeko bata eta txapinak zeramatzan emakume handi bat, bakeroz jantzitako eta ilea dozenaka txirikorda bihurrietan orraztua zuen neska bat, zikin-zikina mahaia, paper azal mehez, **goma-aparrez**, kafe koilarez eta gatz eta piperbeltzezko zorroez betea. Koro Navarro

14 *itsas apar*

Meerschaum, iz (literalki **itsas apar**, eta horretaz egina delako uste okerra zabaldua da). Xabier Olarra

Eraikinaren atzean, **itsas aparra** joka entzuten zen labarreko harkaitzen kontra. Koro Navarro

Hodei zuri baten itxura hartzen zuen batzuetan haien multzoak eta gurera iritsitakoan gure artean zabaltzen ziren, nola **itsas aparra** hondartzaren gainean. Felipe Juaristi

Emakumeak Alba zuen izena José Sánchez Tuterakoak haren ezagutza egin zuenean, eta zuria zen, mendiko elurra, hego haizea, sua, itsasargia, ezkontza izarak, uso mezulariak, esnegaina, **itsas aparra** bezain zuria. Felipe Juaristi

-Lehenengo zientzia, Abstraktoaren itsaso koloregabeetatik sortua, **itsas aparrak** putz egindako Afrodita haragikoiaren jantziz estaltzen da. Jon Muñoz

---

aparadore *iz* ontzitegia, arasa.

Linoleo gainean alfonbra sare bat, norvegiar kutxa bat, aulki bat arropa batzuekin, **aparadorea**, armairu zahar bat, kalefakzio gainean artilezko galtzerdiak, mesanotxean baso bat eta botika kajatxo batzuk. Pablo Sastre

---

aparailu *(ETCn **1.800** agerraldi; cf **aparatu** **7.922** agerraldi)* **1** *iz* lan jakin bat egiteko, eta oro har eginkizun bat betetzeko, erabiltzen den atalen eta osagaien multzo egituratua. ik **tresna**.

Gauza, tresna, eta **aparailu** gehienak Txinakoak, Brasilekoak, edo Mexikokoak dira. Pako Aristi

-Esan? -atezainak **aparailua** hartu zuen, azkenean ere. Edorta Jimenez

Garbikari trinkoa eta leunkaria franko ipini, **aparailua** martxan jarri, eta barnera sartu nahi izaten nuen. Patxi Zubizarreta

-Hemen, Europan bezala, izango da zure erantzungailuko mezuak etxetik kanpora entzuteko **aparailurik**, ezta Popo? Patxi Zubizarreta

Asperduraren kontra azkenekoz ateratzen du teleskopioa, despedida gisa; **aparailua** muntatu, txulotik begiratu eta... hara non ikusten duen pareko neska berari teleskopio batez begira. Xabier Mendiguren Elizegi

Prospektuak argi eta garbi ohartarazten zuen argindar-instalazioaren matxuren kontra, eta **aparailuaren** bateria osagarriaren zainketaren garrantzia azpimarratzen zuen: makina ustekabean deskonektatuz gero gerta zitekeenaren deskripzio kasik danteskoak eskaintzen zituen Disko bat ipini zuen, **aparailuaren** arrakalatxotik txanpon bat sartuta. Iban Zaldua

Atea ondo itxi eta atzean inor ez zegoela ziurtatu ondoren altxatu zuen **aparailuaren** aurikularra eta zenbakia markatu. Xabier Mendiguren Elizegi

Guztiz gosegabetu naiz haren atariko telefonotik Tomen **aparailuarekin** etxera deitu, erantzungailuaren hitzak entzundakoan hirua sakatu, eta noren eta, gainera, Karmeloren mezua topatu dudanean. Patxi Zubizarreta

Perrault-en Vitruvio **aparailu** kritiko ikusgarri batekin lagunduta azaldu zen; **aparailu** horrek, inolako argibiderik ez emateaz gainera, Vitruvioren editoreen arteko egilerik antivitruvianoena bihurtu zuten teoriko frantsesa, eta garaiko polemika akademikoen argumentu bihurtu zuten ingeniari erromatarra. Santiago Iruretagoiena

Kontuan hartu behar duzu, **aparailu** metalezko batez ahoa guztiz irekita eduki genizula ebakuntza garaian, eta hor ibili garela eztarrian behera eta gora lanean. Hasier Etxeberria

Ezustean, telefono **aparailuaren** gainean beste mezu bat ikusi duzu. Patxi Zubizarreta

Besagia hartu eta linea martxan zegoela baieztatu zuen, behin eta berriz: alegia ezetz, ez zela telefono **aparailuaren** matxuraren baten errua inork ez deitzearena. Harkaitz Cano

Zoramena da hura: izugarrizko zarata: jendea, idazmakinak, musika-**aparailuren** batetik U-2 bezalako zerbait. Xabier Mendiguren Elizegi

Madarikazioetan, irrati **aparailua** amatatu eta lo egitera etzan ginen. Edorta Jimenez

Ohikoa da bederatzigarren abenidan jendea beren hildako senitartekoen telebista **aparailuak** eta janzkiak merkezurrean saltzen ikustea. Harkaitz Cano

Horretarako bideo **aparailua** erosi genuen eta arlo guztietako zintak irensten hasi ginen bata bestearen atzetik, gehiago ikasi eta, profesional onen gisa, zerbitzu gero eta hobea eskaini nahian. Jon Arretxe

Belarrietako horiek jarri eta bere CD **aparailua** entzuten doa. Edorta Jimenez

· Ezbairik gabekoa da, ordea, loditasunak eritasun ugari eragiten dituela, hala nola artritisa, hipertentsioa, bihotzeko zein arnas **aparailuko** gaitzak edota minbizi mota jakin batzuk. Berria - Harian

2 itsasontzietako tresneria.

Zubi erromatarraren zuloetan **aparailua** eta sarea edukitzen zituen gordeta, debekualdirako. Koro Navarro

Aparailuak bizkor bildu, aldi berean branka aldetik beste aingura bat larga eta, behingoan, lehorrera bidali zuen txaneltxo bat, popako kriseilua isioturik zeramala, horrela armadako agintariei gure etorreraren berri eman ziezaien. Edorta Jimenez

-Hobe **aparailuak** ebaki mastetara igo baino! -erantzun zuen Joanesek, aiztoa esku batean eta aihotza bestean. Edorta Jimenez

Nire burua, berriz, ez zegoen hartan denbora lar emateko, ezta nire begiak hari luzaz begiratzeko ere, ontziko masta eta **aparailuetan** miraren miraz galtzeko baino. Edorta Jimenez

Hark katuaren malgutasunaz egin zuen mastako **aparailuetan** behera. Edorta Jimenez

Garai berean Mediterraneoan ibiltzen zen **aparailu** karratuko "ontzi biribila", alias karraka; latindar **aparailuko** Indiar ozeanoko "karabela". Iñaki Mendiguren

Arrantza-**aparailu** konplikatuak beren kortxo gorriarekin eta beren kanaberekin. Koro Navarro

3 ***aparailu isodomo*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aparailu isodomoa adreiluak juntura-hautsika eta garaiera berdineko ilaretan paratuz egiten den aparailua da. Hala, horma erabat erregularra lortzen da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aparailu bat (4); **irrati aparailu** (3); **telebista aparailu** (4)

irrati aparailua (3); **musika aparailua** (4)

mastak eta aparailuak (3)

aparailuaren aurrean (3)
aparailuen artean (4)

---

aparantzia *(orobat **aparentzia** g.er.)* **1** *iz ipar* itxura, antza, eitea.
2 ***(ez) aparantziak ere*** (ezezko esaldietan) inondik ere.

Aparantziarik ere ! Raftingak, igerilekuak, kirolak, jolasek, ateraldiek eta gaubeilek hartzen dute eguzkia ardurenean. Berria - Kultura

Ilun? Ez **aparantziarik ere** ! Ez pentsa itxaropenik gabe nizala! Herria

Hemen gaindiko kargudunek ez dituzte **aparantziarik ere** aipatzen bizi diren koperatibak, gu bezala berdin ALKI, COPELEC edo COPELECTRONIC, aspaldiko urtetan ukaldia atxikitzen dutenak. Herria

Etzirela **aparantziarik ere** hain gaixtoak eta bortitzak izan. Herria

Hemen gaindiko kargudunek ez dituzte **aparantziarik ere** aipatzen bizi diren koperatibak, gu bezala berdin ALKI, COPELEC edo COPELECTRONIC, aspaldiko urtetan ukaldia atxikitzen dutenak. Herria

Egia baita guhaurek ere ez ditugula **aparantziarik ere** gure bazter pollit guziak ezagutzen. Herria

Egia ditake alabainan lehen holako egunak gehiago estimatzen zirela, bestalde ez baitzen **aparantziarik ere** orai bezenbat besta, ikusgarri, bilkura eta gaineratiko, denak ateraldiño baten estakuru. Herria

Sartzeko egunean, kolegio, lehen maila eta fraileen egoitzako obrak ez ziren **aparantziarik ere** bururatuak. Xipri Arbelbide

Aireportu hori berritua izana da funski, milioi bat bidaiari gostuan hartzeko gisan, ez da beraz **aparantziarik ere** galkatua. Herria

Kausitze horrek ez du sekreturik **aparantziarik ere** . Herria

Gai horri buruz ere erne egon behar naski nahiz zikinen errausteko orai ezartzen diren tresneriak ez omen diren lehengoak bezen kotsukor eta kaltekor, **ez aparantziarik ere** . Herria

Ilun? **Ez aparantziarik ere** ! Janbattitt Dirassar

Ez da haatik hori beti hola izan, **ez** eta **aparantziarik ere** ! Herria

Horiek hola, ez da dudarik bonbardamenduek jende zibilak hil dituztela, lau ehun bederen diote talibanek, **aparentziarik** ere ez hainbertze diote Amerikanoek. Herria

Mundu osoaren heina eta izaria hartzen ari duen ekonomiak ez ditu herri ttipi eta ahulak fagoratzen, **aparentziarik** ere. Herria

---

aparantzia *(orobat **aparentzia** g.er.)* **1** *iz ipar* itxura, antza, eitea.
2 ***(ez) aparantziak ere*** (ezezko esaldietan) inondik ere.

Aparantziarik ere ! Raftingak, igerilekuak, kirolak, jolasek, ateraldiek eta gaubeilek hartzen dute eguzkia ardurenean. Berria - Kultura

Ilun? Ez **aparantziarik ere** ! Ez pentsa itxaropenik gabe nizala! Herria

Hemen gaindiko kargudunek ez dituzte **aparantziarik ere** aipatzen bizi diren koperatibak, gu bezala berdin ALKI, COPELEC edo COPELECTRONIC, aspaldiko urtetan ukaldia atxikitzen dutenak. Herria

Etzirela **aparantziarik ere** hain gaixtoak eta bortitzak izan. Herria

Hemen gaindiko kargudunek ez dituzte **aparantziarik ere** aipatzen bizi diren koperatibak, gu bezala berdin ALKI, COPELEC edo COPELECTRONIC, aspaldiko urtetan ukaldia atxikitzen dutenak. Herria

Egia baita guhaurek ere ez ditugula **aparantziarik ere** gure bazter pollit guziak ezagutzen. Herria

Egia ditake alabainan lehen holako egunak gehiago estimatzen zirela, bestalde ez baitzen **aparantziarik ere** orai bezenbat besta, ikusgarri, bilkura eta gaineratiko, denak ateraldiño baten estakuru. Herria

Sartzeko egunean, kolegio, lehen maila eta fraileen egoitzako obrak ez ziren **aparantziarik ere** bururatuak. Xipri Arbelbide

Aireportu hori berritua izana da funski, milioi bat bidaiari gostuan hartzeko gisan, ez da beraz **aparantziarik ere** galkatua. Herria

Kausitze horrek ez du sekreturik **aparantziarik ere** . Herria

Gai horri buruz ere erne egon behar naski nahiz zikinen errausteko orai ezartzen diren tresneriak ez omen diren lehengoak bezen kotsukor eta kaltekor, **ez aparantziarik ere** . Herria

Ilun? **Ez aparantziarik ere** ! Janbattitt Dirassar

Ez da haatik hori beti hola izan, **ez** eta **aparantziarik ere** ! Herria

Horiek hola, ez da dudarik bonbardamenduek jende zibilak hil dituztela, lau ehun bederen diote talibanek, **aparentziarik** ere ez hainbertze diote Amerikanoek. Herria

Mundu osoaren heina eta izaria hartzen ari duen ekonomiak ez ditu herri ttipi eta ahulak fagoratzen, **aparentziarik** ere. Herria

---

aparato ik **aparatu**.

---

aparatoso *izond* deigarria, arranditsua.

Nekeza behar duela hain gauza **aparatosoekin** malabarak egitea. Harkaitz Cano

Baina dortokak eta sugandilak haserretzen diren bezala haserretu ziren, supituan, orkestra bat bezain modu **aparatosoan** . Unai Elorriaga

Ezer egitekotan, formato txikerrean egingo neuke eta, soinu aldetik, ez dot gura **aparatosoa** izan daiten. Xabier Amuriza

---

aparatu *(ETCn **7.922** agerraldi; orobat **aparato** **134** agerraldi)* **1** *iz* lan jakin bat egiteko, eta oro har eginkizun bat betetzeko, erabiltzen den atalen eta osagaien multzo egituratua. ik **aparailu**; **tresna**.

Zortzi ordu txandaka lan egiten duen soldadoreak, baietz, badituela autoa, plater-garbigailua, telebista, DVD **aparatua** , sakelako telefonoa, eta baita Internet ere, baina ez dela hobeto bizi. Iñaki Heras

Aparatua , bezperako bera, entxufatu, eta bazebilen. Joxe Austin Arrieta

Edozein **aparatuk** huts egin dezake noizbait; zergatik den ez jakiteak, horrexek urduritzen nau, eta jakin arteko onik ez nik. Joxe Austin Arrieta

Aparatua itzali eta atea irekitzera joan naiz. Xabier Etxabe

Gauzak behar bezala egiteko, telefonotik zuzenean grabatzeko **aparatu** bat erosi nuen. Ramon Saizarbitoria

Bat eskoba-kirtena bezain tentea zen, eta **aparatua** zeraman hortzetan. Anjel Lertxundi

Beraz, **aparatua** gakotu eta "Zentrora" joan behar genuela aditzera eman nionean, bildots baten gisara jarraiki zitzaidan. Aingeru Epaltza

Bentzenoaren matrazean "ilar erdi baten lodierako" potasio xorta bat bota (hala zioen eskuliburuak) eta maratz-maratz destilatu nuen guztia: operazioa burutzeko puntuan, gisa den moduan sugarra iraungi, **aparatua** desmuntatu, matrazean geratzen zen likido apurra doi bat hozten utzi, eta gero, burdin ziri luze puntadun batekin, potasio "ilar erdia" sastatu eta atera egin nuen. Juan Garzia

Bulegoan tresna eta **aparatuak** aditzen dira eta noizean behin telefonoak ttorttor arin bat egiten du errakuntzaz konektatzen denean. Fernando Rey

Nire lantokia iraultza teknologikoaren gurpilari uztartu zitzaionetik honat, bitan aldatu dizkigute **aparatuak** , "azken belaunaldiko" bertze batzuk ekartzeko. Aingeru Epaltza

Bi entzungailuko **aparatu** baten bidez hitz egiten du itzultzaileak erabiltzailearekin. Berria - Gaiak

Handik gutxira zukua egiteko **aparatua** hondatu zitzaigun, eta Lizek -orduan seiren bat urte izango zituen- hari ere lur eman behar zitzaiola esan zuen. Bernardo Atxaga

Disko bat atera zuen pilotik, eta **aparatuaren** platerean jarri. Bernardo Atxaga

Alde egin hortik! -oihu egin zuen berriz Pepponek, eskua karga lehertzeko **aparatuaren** eragingailuan zuela-. Koldo Biguri

Ez zenuen zertan igo -txistukariak are txistukariago, hortzetako **aparatuaren** eraginez. Aingeru Epaltza

Aparatuan jarrita neukan zinta hoteleko aparkalekuan ordu batzuk lehenago aukeratutakoa zen, Ben Websterren grabazio zahar bat. Bernardo Atxaga

Ez zuen piztu **aparatua**. Joxemari Iturralde

Etxebizitza askok ez dute sukaldea izango, praktikan: platerak berotzeko **aparatua** eta hozkailua baino ez da izango bertan, eta gordean gainera. Edorta Agirre

Kristau-erlijioak bere teologi exegesirako filosofia helenikoaren **aparatua** erabiltzen du. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Azken boladan, fisikarien eskutik, baditugu hainbat **aparatu** konplexu, armategi oso bat hortxe, ekografiaz eta erresonantzia magnetiko nuklearrez; horien bitartez, egundo ez bezalako zehatz eta garbi ikus dezakegu, oso goiztiar, fetua. Juan Garzia

Labea (elikagaien berogailua), izozkailua (luze kontserbatzeko) eta hozkailua (egun batzuetan mantentzekoa) **aparatu** bakar eta bera izango da. Edorta Agirre

Aparatu zinematografiko guztietan kamera da ikus daitekeenarekin lotura estuena duena. Josu Zabaleta

Aparatu irrati-hartzaile bat zen funtsean, maiztasun-alde txiki-txikiak atzemateko zituena. Juan Garzia

Denbora-sekuentzien entzutezko pertzepzioa ahotsaren **aparatu** sensoriomotorraren zenbait aldaketarekin egokiturik, guztiz modu berrian sinboliza daiteke, eta kodetu, irudikapen kognitibo hori. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Volvoaren gidariaren purrustada ez zen irrati **aparatu** urrun bateko marmari monotonoa baizik: ez bada, hobe; bada, bego. Aingeru Epaltza

Asierrek poliki luzatu du bere ezker eskua irrati-**aparatuari** buruz. Aingeru Epaltza

Ez ninduten bultzatu, ordea, kirol zelaia eraikitzen ari ziren kamioi eta gruen marruek, edo akordeoiarekin interpretatzen nituen doinuek, edo orduantxe zabaltzen ari zen telebista-**aparatuen** soinu guztiz berriak, baizik eta beste iragan batetik, iragan hurbiletik, etorritako hots batzuek. Bernardo Atxaga

Nire buru barnea, ordea, telebista **aparatu** itzalia zen. Aingeru Epaltza

Hik baduk hor bideo **aparatu** bat, ezta? Xabier Mendiguren Elizegi

Egoera onarturik, kartoizko kutxa txiki bat jarri nuen telefono **aparatuaren** alboan: borondatea zuenak jar zezala han txanpona. Bernardo Atxaga

Tabernari-taskeroak musika **aparatu** (musikagailua) zahartu batean mugimendu batzuk egin ditu. Berria - Kirola

Musika **aparatuan**, Mick Jagger ari zen beti, xuabe, burua gorputzetik bereizten denean bezala. Aingeru Epaltza

Bosgarrena sartzen dut, abiadura normalera iristen naiz eta erosi berri dudan konpaktua sartzen dut musika **aparatuan**, Syd Barretek Pink Floyd utzi ondoren grabatutakoa, James Joyceren poema batekin egindako abesti bat dago, Golden Hair. Mikel Hernandez Abaitua

Aita morse-**aparatua** konpontzen saiatzen ari zen; bateria bati lotua zegoen, baina ez zuen inolako tik-tik soinurik egiten. Juan Kruz Igerabide

Arratsaldean, ilunabar aldera iritsi zen, azkenean, agindutako hegazkina, kirol-**aparatu** bat, luzaroan itzulinguruka ibili zena, bere jauskailua askatzera deliberatu zen arte: hiru zaku eta bi kaxa, hirurehun metroko ingurunean han-hemenka sakabanatuta jaso behar izan genituenak. Joxe Austin Arrieta

"Asmatu berri duten tortura-**aparatu** sofistikaturen bat" pentsatu duzu. Rafa Egiguren

Ez dago frogatua gure aho **aparatua** hitz egiteko egina dagoela, gure hankak ibiltzeko sortuak dauden bezalaxe. Isabel Arrigain

Ikusmen-**aparatuaren** eginkizuna ez da, haren iritzian, ez inputak "deskodetzea", ez pertzeptuak "eratzea", informazioa ateratzea baizik. Josu Zabaleta

Lehen begiratuan oso garrantzitsuak diruditen faktore linguistikoak (ahots **aparatua**, esaterako), bigarren mailako faktoretzat hartu behar dira, baldin hizkuntza beste sistemetatik bereizteko balio badigute soil-soilik. Isabel Arrigain

Aurreikusteko makina moduko bat da gure organismoa, aurreikuste-**aparatu** automatiko mordoxka batek osatua. Juan Garzia

Orain arte eman ditugun azalpenak ikusgaitasunari zegozkionak ziren guztiak: pertzepzio-**aparatuak** argitara erreakzionatzean dituen ezaugarri nagusiak aurkeztu ditugu labur-labur. Josu Zabaleta

3 abereen eta landareen organu multzoa, funtzio fisiologiko jakin bat betetzen espezializatzen dena.

Konortea tarteka galdu zuela eta **aparatu** neurologikoko eskasia eta motrizitatearen alterazioa izan duela zehaztu zuen txosten medikuak. Berria - Mundua

Oso ondo dago gure digestio edo zirkulazio **aparatua** nolakoa den jakitea. Luis Elberdin

Ahoskera egokia ekoizteko, gainera, AHOTS **aparatuaren** mugimendu-aginduak ere berriro programatu beharko ditu. Lourdes Oñederra

Laringean bertan, arnas-**aparatua** babesten duen GLOTISA ireki eta ixteko ditugu AHOSKORDAK, hizketa hotsen sorreran hain funtsezko direnak. Lourdes Oñederra

Inflamazio bati aurre egiteko antiinflamatorioak oso eraginkorrak izaten dira, baina, beste atal batentzat -digestio-**aparatuarentzat**, kasu-, kaltegarri izan daitezke, ordea. Iñaki Heras

Gorputzaren kanpoaldea nahiz biriken, digestio-**aparatuaren**, maskuriaren eta kanpoaldearekin komunikatzen diren beste barrunbe batzuen barrualdea, guztiak ere zelula epitelialez osaturik daude. Irene Aldasoro

Bat baino gehiago harrituko litzateke jakinez gero 30 eta 45 urte bitarteko pertsonen %24,6k arazoak dituztela lokomozio-**aparatuan**; mundu osoan antzeko tasak daude. Berria - Gaiak

Ordea, benetan nahi al duzue maitea ikusmen-**aparatuaren** argitasun hotzetan ikusi? Oskar Arana

Begirada errugabea mitoa baizik ez da, hortaz, eta ikustea, berez, espero duguna eta gure ikusmen-**aparatuak** jasotzen duen mezua konparatzea baino ez dela izan da, hain zuzen ere, Gombrichen lehen ekarpena. Josu Zabaleta

Aldiz, sekulako abia ematen dio nire gernu-**aparatuari**: hirugarrenetik aurrera taigabe behar izaten dut, lehertuko ez banaiz, maskuria komunzulora hustu. Aingeru Epaltza

Ugaltze-**aparatua**, gaur egun organismorik sinpleenean, bakteriorik xumeenean ageri den moduan, konplexutasun ikaragarrizko mekanismoa da, noski. Juan Garzia

4 partidu politiko edo erakunde baten organizazioa zuzentzen duen kideen multzoa.

Guk, batzuetan, terminologia marxista erabiliz, **"aparatua"** deitzen diogu. Rafa Egiguren

Erregea mendean edukitzeaz baliatuz, merkataritak eta finantzariak estatuko **aparatuen** maila guztietan sartu ziren. Koro Navarro

Barne-espazio zabal bat dago, irekitzen hasia, eta gizarteegiturak eta estatuaren **aparatuak** mantso-mantso berregiten dira bertan. Koro Navarro

Alderdi politikotik begiratuta, bere ustez, egoerak bazeukan zerbait ona: ETA herrian sustraitzen ari zela erakusten omen zuen, baina oztopoak ere ezin ziren ahaztu, eta erakundearen **aparatua** berreraikitzen hasi beharra zegoen lehenbailehen. Rafa Egiguren

Gerra Zibila eta ondoko garapen soziala gogorarazi diozu hasteko, eta nola sindikalgintza estatuko **aparatuan** integratuta zegoen garai hartan. Rafa Egiguren

Azaroaren 1ean Zuluaga atxilotzeko agindu zuen epaileak eta espetxeratu egin zuen hurrengo egunean, "ETAren **aparatu** politikoko kide legala" zela esanda. Berria - Harian

Aparatu instituzionalek ala politikoek beti ukanen dute historia tresna politiko bezala erabiltzeko. Berria - Kultura

Harremana, alde batetik, epai-galdeketak, polizia-txostenek, ikerketak eta argibide juridikorako **aparatu** osoak osatzen duten iragazkiaren eta, bestetik, mediku-galdeketek, azterketa klinikoek, aurrekarien ikerketek eta bibliografia-erreferentziek osatzen duten iragazkiaren artean. Xabier Arregi

Gure erretore nagusia higatzen hasia, ez baita gazte haietarik: curriculum normal bat egina izan du, gaztaroan bikario, gero erakasle, gazte mugimenduetan omonier, katixima arduradun; **aparatu** gizona, denena egiten saiatzen dena. Piarres Aintziart

Gurasoek esanda poemak errezitatzen zizkien bisitariak [...], irakasleak, kapitalismoa, militarismoa, alderdi **aparatua**, iraultza telezuzendua, marxismoaren zein sozialismoaren idolatrak. Markos Zapiain

Estatu-**aparatuak**, zergen bidez, zerbitzu publikoen jardun eta finantzaketarako behar ziren baliabideak -hornigai kolektibo eta sozialak- biltzeko gai izan direlako gauzatu da estatuaren esku-hartze hau, alde askoko erakundeak aspalditik zabaltzen ari diren Biblia liberalaren hain bestelakoa. Koro Navarro

Ororen gainetik, zentroa imitatzen du, eta zentroaren arrastoari jarraitzen ahalegintzen da [...] estatu-**aparatu** eraginkorrak osatuz edo berreginez, eta enpresaburu-klase

nazional bat sustatuz. Koro Navarro

Horrez gainera, izugarri areagotu ziren europar ekoizpen-**aparatuaren** premiak (lehengaienak), eta, horren ondorioz, modu ikusgarrian berpiztu zen kolonia-zabalkundearen ekimena. Koro Navarro

5 irud/hed

Aparatu polizialak indar handia dauka, eta kontuz ibili behar izaten dugu. Rafa Egiguren

Asmatu berri duten tortura-**aparatu** sofistikaturen bat" pentsatu duzu Rafa Egiguren

6 ***aparatu begetatibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Atal hori, ikusten ez dena, perretxikoaren **aparatu begetatiboa** da. ETC-entziklopedia

7 ***aparatu bestibular*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Sistema honen barruan mintzezko hodi eta ganberak daude, mintz labirintoa, **aparatu bestibularraren** zati funtzionala. ETC-entziklopedia

8 ***aparatu digestibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Hiru garbiketa: sudurra, urdaila eta **aparatu digestibo** osoa. ETC-literatura, saiakera

Asinkronia edo egokitzapenik ezaren ondorio dugu denon begi-bistan dagoen panorama: geroz eta jende gizen ugariago, gaitz kardiobaskularrak, **aparatu digestiboko** minbiziak, diabetesa, besteak beste. ETC-prentsa

Analgesikoek, sedante edo lasaigarriek nahiz antidepresiboek, esaterako, hesteetako peristaltismoa (janariak **aparatu digestiboan** barrena bultzatzen dituen prozesua) moteldu egiten dute, eta horren eraginez gorputzak erregularki libratzeko zailtasunak izan ditzake, haurdunaldian gertatzen den bezalatsu. ETC-prentsa

Aparatu digestiboaren funtzionamendu egokia zaintzeko, airea soberan irenstea saihestuko duten arau dietetiko erraz batzuk betetzea aski da. ETC-prentsa

Zirkulazio-sistemaren atzetik **aparatu digestiboko** gaitzak datoz, %11,4 izan ziren, eta hauen artean iztaiko hernia da gehien agertzen den arrazoia. ETC-prentsa

Aparatu digestiboko minbizi bat denez, jan-neurriak funtsezko garrantzia du minbizia agertzea prebenitzeko garaian. ETC-prentsa

Larrialdietako medikuek, eta seguruenik **aparatu digestiboko** sailekoek, era guztietako azterketak egingo dizkiote, mina eragiten duen gaitzaren bila, baina gogotik saiatu arren ez dira gauza diagnostiko zehatza egiteko. ETC-prentsa

Joera bera ageri da **aparatu digestiboko** medikuntzan, medikuntza nuklearrean eta beste batzuetan. ETC-prentsa

9 ***aparatu justaglomerular*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Aparatu justaglomerularra : Arteriola aferenteen tarteko geruzako zelula muskularretan bikorrak daude. ETC-entziklopedia

10 ***aparatu kardiobaskular*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Hilekoaren galerak ondorio ugari ditu; hezurrak ahuldu egiten dira, itolarriak sortzen dira eta **aparatu kardiobaskularra** babesik gabe gelditzen da. ETC-prentsa

Gehien egokitzen diren sistemen eta organoen artean, hauek nabarmentzen dira: sistema endokrinoa eta hematologikoa,**aparatu kardiobaskularra** , digestio-sistema eta giltzurrun-aparatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zifosi maila altuek mina eta ondoez larriak eragin ditzakete: arnasketa eta digestio zailtsaunak, **aparatu kardiobaskular** edo sistema kardiobaskularreko irregulartasunak, arazo neurologikoak, eta kasu larrienetan, bizitza nabarmen murriztu dezakete. ETC-entziklopedia

11 ***aparatu psikiko***

Freudentzat "gorputzaren barrenetik sortu eta psikismora iristen diren kitzikaduren adierazle psikikoa" da irrika: gorputzeko kitzikadura baten eta kitzikadura hori menderatzeko helburua duen **aparatu psikiko** batean duen adierazpenaren arteko topagunea da irrika. Josu Zabaleta

12 ***aparatu urogenital*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Bi: Umearen **aparatu urogenitalak** bere gaitasunak ez galtzea lortu behar da, eta era berean, plazera emateko balio izatea. ETC-prentsa

13 ***arnas aparatu*** *iz* arnasketan parte hartzen duten organoen multzoa.

Arnas aparatuko gaitzen kontra egin nahi du OMEk . Berria - Gaiak

Kontuan hartu behar dugu lo gaudenean gure **arnas aparatuak** gutxiago aireztatzen duela, eta bakterioak bertan ugaltzeko aukerak handiagoak direla. Berria - Harian

14 ***digestio aparatu***

Gorputzaren kanpoaldea nahiz biriken, **digestio-aparatuaren** , maskuriaren eta kanpoaldearekin komunikatzen diren beste barrunbe batzuen barrualdea, guztiak ere zelula epitelialez osaturik daude. Irene Aldasoro

Adituen arabera, ordea, horrelako botikek, maiz hartuz gero, **digestio aparatuan** arazoak sor ditzakete. Berria - Gaiak

Beraz, maizenik eta tamalez, aukeraketa egin behar da helburu horien bien artean: edo inflamazioari aurre egin edo **digestio-aparatua** zaindu. Iñaki Heras

Digestio-aparatuan espezialista zen lagun batek esan zidanez, hesteetako infekzio larri bat zuen, cryptosporidium parvum izeneko parasitoak eraginda, itxura batean. Joan Mari Irigoien

Orain, ordea, hego-haizea sentitzen zuen **digestio-aparatuan** zehar, eztarrira eta biriketara hedatzen. Unai Elorriaga

"Kontuan izan behar da ebakuntza horren ondorioz **digestio aparatuaren** prozesua eta janariaren xurgatzea erabat aldatzen direla», azaldu du Arrazolak. Berria - Euskal Herria

15 ***emakumearen aparatu genital*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Emakumearen ugaltze-aparatuak edo **emakumearen aparatu genitalak** bi zati ditu: umetokia, garatzen ari den fetua hartzen duena, bagina-jariakinak eta utero-jariakinak sortzen dituena, eta hazia umetoki-tronpetara edo Falopio-tronpetara eramaten duena; eta obarioak, emakumeen obozitoak edo gametoak sortzen dituztenak. ETC-entziklopedia

16 ***emakumearen ugaltze aparatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Emakumearen ugaltze-aparatuak edo emakumearen aparatu genitalak bi zati ditu. ETC-entziklopedia

Bestetik, **emakumearen ugaltze aparatuak** lesioak izateko arrisku handiagoa du. ETC-prentsa

Horrela, gaur egun badakigu hilekoa **emakumearen ugaltze-aparatuari** loturiko gertaera dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 ***fonazio aparatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Azkenik, faringeak beste hirugarren funtzio bat ere badu, mintzamenarekin lotutakoa: **fonazio-aparatuaren** parte ere bada, eta soinuaren sorreran eta transmisioan parte hartzen du. ETC-entziklopedia

Nolabait ere, **fonazio aparatua** eta garuna batera bilakatu zirela uste da, eta horri esker gizakia hizkuntza garatzeko gai izan zela, baina hitzak ez dira fosil bihurtzen, eta **fonazio aparatuko** atal gehienak ere ez, hori dela-eta hori guztia nola gertatu zen frogatzea zaila da... ETC-prentsa

b) **Fonazio-aparatua** , soinua kanpoan entzungarri egiteko edo bihurtzeko gauza den airearen bibrazioa sortzen duena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, are arrazoi sendoagoa dugu Le Dantec-en tesia ez onartzeko, hark belarriaren eta **fonazio-aparatuaren** bat-etortze erreflexu baten bidez azaltzen baitu gizakiaren hitza. ETC-zientzia, zuzenbidea

18 ***gernu aparatu***

Aldiz, sekulako abia ematen dio nire **gernu-aparatuari** : hirugarrenetik aurrera taigabe behar izaten dut, lehertuko ez banaiz, maskuria komunzulora hustu. Aingeru Epaltza

19 ***gizonezkoaren aparatu genital*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Gizonezkoaren ugaltze-aparatuak edo **gizonezkoaren aparatu genitalak** gizonezkoan espermatozoideen sorkuntzaz eta arrautzaren ernalketaz arduratzen diren organoen multzoa da. ETC-entziklopedia

20 ***Golgi aparatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **197** agerraldi)*

Golgi aparatuak edo Golgi konplexuak haren aurkitzaile Camilio Golgi XIX. mendeko histologo italiarrari zor dio izena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jariatuak izango diren glikoproteina eta polisakaridoak **Golgi aparatuan** prozesatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Purkinje neuronen sometan mitokondria asko, erretikulu endoplasmatiko bikortsu oso garatua, **Golgi aparatua** eta lisosoma ugari edukitzeak azaltzen du haien jarduera metabolikoki oso aktiboa. ETC-zientzia, zuzenbidea

ATP7B proteina, hepatozitoen **Golgi aparatuko** trans-bidean kokatzen da eta behin kobrea lotua duela, zeruloplasminari (Cp) igaro egiten dio, hau ere trans-Golgi bidean kokatuta dagoelarik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zeluletako erretikulu endoplasmatikoan zeramida (esfingosina gantz-azidoa) eratzen da eta **Golgi aparatuan** monosakaridoak gehitzen zaizkio. ETC-entziklopedia

Gaineztadura edo mintzaz babestutako beste organulu batzuk ere badituzte zelula eukariotoek, adibidez mitokondrioak eta **Golgi aparatua**. ETC-entziklopedia

Zitozinesia gertatzen denean (zelularen zatiketa) **Golgi aparatutik** sortutako fragmoplasto izeneko xixkuak ekuatore aldean kokatzen hasten dira eta bata bestearekin elkartu ahala "erdiko xafla" eratzen dute. ETC-entziklopedia

21 *Golgiren aparatu* *(corpusean ez dago; ETCn **68** agerraldi)*

Golgiren aparatua (zaku bakuolodun lauek osatzen dute, jariaketa- eta kondentsazio-mintza da, materialak biltegiratzen ditu eta materia hartzen du) ETC-zientzia, zuzenbidea

Seinale peptidoa daramaten proteinak, orokorrean, erretikulu endoplasmatikora bideratu ohi dira (eta handik gehienetan **Golgiren aparatura**). ETC-zientzia, zuzenbidea

Organulu dira zelula gunea, mitokondria bat edo **Golgiren aparatua**. ETC-entziklopedia

22 *Haldaten aparatu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Haldaten aparatua Charles de Haldat du Lys fisikari frantsesak asmaturiko tresna da, ontzi baten hondoaren gainean likido isurkari batek egiten duen presioa, isurkari horren dentsitatearen eta garaieraren araberakoa, eta ez ontziaren formaren araberakoa dela frogatzeko balio duena. ETC-entziklopedia

23 *iraitz-aparatu* *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Iraitz-sistema edo **iraitz-aparatua** gernua eratzeaz, metatzeaz eta kanporatzeaz arduratzen den organoen multzoa da. ETC-entziklopedia

Hesteetako arazoak, beherakoak eta odol galtzeak eragin ditzake, baina baita beste hainbat gaitz ere: arazoak **iraitz aparatuan**, meningitisa, peritonitisa, mastitisa, septizemia eta pneumonia, besteak beste. ETC-prentsa

Eta, orain dela gutxi, Wim Delvoye artista belgikarrak **iraitz aparatua** makinizatu zuen, metamorfosiaren sistema hori burutzen duten makinak sortu (makinismo eta mekanizazioaren burlarik gorena). ETC-prentsa

Gernuaren kontzentrazio egokia izateko ezinbestekoa da ura, **iraitz aparatuaren** funtzioa baitu. ETC-prentsa

Iraitz-aparatuaren edozein ataletan bezala, lau motatakoak dira: kalkuluak, koaguluak, tumoreak eta giltzurrun-papilak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta, azkenik, aparatu guztiak (digestio-aparatua, arnas aparatua, **iraitz-aparatua** ...). ETC-zientzia, zuzenbidea

24 *irrati aparatu* irrati hargailua.

Irrati aparatu urrun bateko marmari monotonoa. Aingeru Epaltza

Irrati aparatu baten musika zetorren patiotik. Javi Cillero

Atsegina egin zitzaidan inguruko gauzek erakusten zuten tinkotasuna, zein seguru zegoen **irrati** aparatua alfonbraren gainean. Bernardo Atxaga

Irrati aparatu urrun bateko marmari monotonoa. Aingeru Epaltza

25 *liseri aparatu* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Osasuna eta sukaldearen inguruan hainbat liburu idatzi duen mediku honek **liseri-aparatuko** ebakuntza asko egin ditu. ETC-prentsa

Tomateak prostata eta **liseri-aparatua** babesten ditu. ETC-prentsa

Lanerako tresnak eta protokoloak fintzearen beharra, oraindaino estandarizaziorik eza, harrapakinen harrapakinak (**liseri-aparatuko** hondarrak) harrapariaren dietaren parte hartzearen akatsa eta laginak kutsatzeko arriskua, besteak beste. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezpainak digestio-aparatu edo **liseri aparaturako** sarrera eta ahoaren aurrealdeko irekidura. ETC-entziklopedia

Gizarte antolakuntza feromonak, **liseri aparatuaren** bidez igortzen dira, ahotik zein uzkitik. ETC-entziklopedia

26 *liseriketa aparatu*

Eta are, koliko lausotu batek **liseriketa-aparatu** guztian zehar zabaldu nahi zelako seinalea ematen zuela, Hiltegira daramaten txekorra ematen dut, pentsatu zuen, eta zorionez bere buruari erdeinu izateko gauza izan zen. Jon Alonso

Arnas eta **liseriketa aparatuen** gaixotasunak: ur erradioaktiboak. Berria - Euskal Herria

Askoren gosaria, esate baterako, "iraina» omen da edozein **liseriketa aparaturentzat**. Berria - Euskal Herria

27 *lokomozio aparatu*

Bat baino gehiago harrituko litzateke jakinez gero 30 eta 45 urte bitarteko pertsonen %24,6k arazoak dituztela **lokomozio-aparatuan**; mundu osoan antzeko tasak daude. Berria - Gaiak

28 *ugal-aparatu* *(corpusean ez dago; ETCn **77** agerraldi)*

Ugal-aparatua, ugaltze-aparatua edo ugaltze-sistema organismo baten sexu ugalketarako elkarrekin lan egiten duten organoen sistema bat da. ETC-entziklopedia

Esan barik doa mojen eskolan sexualitatea **ugal-aparatuen** azalpen hutsa zela, azken kurtsoetan eta andrazko irakasle sekular baten esku. ETC-literatura, saiakera

Espezie bakunetan, organismoa apenas den **ugal-aparatua** baino gehiago. ETC-literatura, saiakera

Jarduera intelektualak emakumearen **ugal-aparatuan** eragiten zituen kalteei buruzko teoria ginekologiko guztiz errespetagarriak zeuden indarrean. ETC-literatura, saiakera

Beste batzuk, ostera, garatu egin dira (organo atxikitzaileak adibidez: kopadurak, gakoak, kizkiak.), edota hipertrofiatu ere (**ugal aparatua**). ETC-zientzia, zuzenbidea

Arnas eta **ugal-aparatuetan** ageri diren epitelioek (elkarri atxikitako zelulez osatutako geruzek) luzapen mugikorrak dituzte gainazal askean; luzapen horiei zilio deritze. ETC-zientzia, zuzenbidea

Desberdintasun anatomiko handiak dituzte bi talde horiek, **ugal-aparatuari** dagokionez batez ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mikrobiloxka luze berezi hau (gaur estereobiloxka ere esaten zaio) ez dago oso hedatuta epitelioen artean, **ugal-aparatu** arraren epididimoan eta hodi deferentearen eremu proximalean eta belarriko zelula sentsorial ziliatuetan baino ez baitago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hau gizonaren **ugal aparatuan** aurkitzen den barne peptido opioidea da eta dirudienez funtzio espermatikoa erregulatzen dihardu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nerabezarora iritsi ez den neskato baten bagina eta **ugal aparatu** osoa, oro har, "oso sentibera" izaten da, "estrogenozko babes txikia izaten duelako, batetik, eta baginako azidotasun faltak bakteriak haztea errazten duelako, bestetik". ETC-prentsa

Bestalde, **ugal aparatuan** arazoak, anorexia eta halakoak sortu izan ditu. ETC-prentsa

Larruazalean ez ezik, digestio, gernu, arnas eta **ugal-aparatuetako** ehun eta barrunbeetan ere aurkitzen ditugu. ETC-prentsa

29 *ugaltze aparatu*

Ondoren, 1987. urtean, EntreNous aldizkariaren 10. zenbakian, ikerketak martxa onean zihoazela zioten, baina gizonaren **ugaltze aparatua** konplexua dela, eta horixe zela arazoa. Luis Elberdin

Horretarako, bi arrazoi ematen dituzte: gizonen **ugaltze aparatuaren** konplexutasuna eta pilularen nahi gabeko ondorioak. Luis Elberdin

Horrenbestez, gure **ugaltze aparatua** eta ernalketaren mekanismoak ahalik eta ondoen ezagutzen ahalegindu gara, alde batetik, haurdunaldia eragozteko bitartekoak jarri ahal izateko. Luis Elberdin

Baina **ugaltze-aparatua**, gaur egun organismorik sinpleenean, bakteriorik xumeenean ageri den moduan, konplexutasun ikaragarrizko mekanismoa da, noski. Juan Garzia

Horregatik, Riora aldatu eta lehenbiziko gauzetako bat ginekologoz ginekologo ibiltzea izan zen, eta ez dakit zenbatengana joan nintzen, baina, hori bai, bakoitzak arazo desberdin bana asmatu zuen nire **ugaltze-aparaturako**. Karlos Zabala

Gizonek arazo larriak dituztenean **ugaltze aparatuan**, eta, ondorioz, hazia maila eskasekoa denean. Berria - Gaiak

30 *zirkulazio aparatu*

Hauek dira ospitaleratzeko arrazoi nagusiak: **zirkulazio aparatuko** gaixotasunak (%12,8), digestio aparatukoak (%11,4), nerbio sistemakoak eta zentzumen organoetakoak

(%9,9), arnas aparatukoak (%9) eta tumoreak (%8,9). Berria - Euskal Herria

Oso ondo dago gure digestio edo **zirkulazio aparatua** nolakoa den jakitea. Luis Elberdin

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aparatu bat (15); **aparatu bati** (3); **aparatu hori** (3); **aparatu hura** (3); **etaren aparatu** (3); **telebista aparatu** (4)
aho aparatua (3); **hortzetako aparatua** (3); **musika aparatua** (7); **ugaltze aparatua** (3); **zuen aparatua** (5)
estatu aparatuak (3)
digestio aparatuan (3); **musika aparatuan** (7)
aparatuaren ondoan (3); **digestio aparatuaren** (4); **musika aparatuaren** (3); **zen aparatuaren** (3)
aparatuari buruz (3)
estatuko aparatuen (4)
aparatuko kide (3); **arnas aparatuko arazoak** (3); **logistika aparatuko** (3)

---

apardun 1 *izond* aparra duena. ik **apartsu**.

Salbuespen bakarra Champagneko ardo **aparduna** da. Berria - Ekonomia

Oroit naiz hodei **apardun** edo batzuk ikusi izana neure buru gainean zirimolaka eta gero apar hartaz busti izana ahozuloa eta lainope hartan galdu izana. Juan Garzia

2 ***ardo apardun*** ik **ardo apartsu**.

Salbuespen bakarra Champagneko **ardo aparduna** da. Berria - Ekonomia

---

aparejadore *iz* tekniko tituluduna, arkitektoaren laguntzaile lana egiten duena.

Halaxe esan zidan behintzat maña batekin ezkondutako **aparejadore** uruguaitar batek, han Zaragozan, nire kontsultan. Joan Mari Irigoien

Gipuzkoako Foru Aldundiak baserriaren eta euren egoerari buruz erakutsi duen interesa nabarmendu du Olaizolak: **Aparejadorea** -eta berehala agertu ziren gurera. Berria - Euskal Herria

---

apareju *iz adkor* pertsona alproja.

Oteiza boxeolari zapuztua herriko aurrena izan zen soldadutza Legión Extranjera-n egiten, han behean, Afrikan, mundu osoko hiltzaileek jakin zezaten nolako **aparejuak** sortzen ziren gure bazterretan. Koldo Izagirre

---

aparente *izond* atzemangarria.

Eta jateko orduak ziren motibo **aparenterik** gabe haserretzen zuten egoera bakarrak. Unai Elorriaga

Berehala ikusi zuen Matiasek gizonak ezin ziola bere jardunari eutsi, eta gauzak esan eta esan zebilela, gelditzeko asmo **aparenterik** gabe. Unai Elorriaga

---

aparentza ik **aparantzia**.

---

aparentzia ik **aparantzia**.

---

apargoma *iz* apar sintetikoa, tapizerian eta forraduretan betegarri gisa erabiltzen dena.

Apargomazko koltxoia gorputzaren inguruan jarri zidaten, eta bitartean poltsa egin zidaten, gainetik ur hotza botatzen zidatela edo kolpeak ematen zizkidatela. Berria - Euskal Herria

Beste batean, **apargomazko** koltxoi baten gainean etzanarazi eta nire gainean beste koltxoi bat jarri zuten. Berria - Euskal Herria

---

apari ik **afari**.

---

apario *iz* arrantzarako tresneria. ik **aparailu 2**.

Molaren tropek Matiuxenkok Vakulintxukek gurasoek fraideek Heinkelak karabineroek Erkiziak Tomasek zuhurtziak naturak gain hartu nahi diote gure eskuek darabilten asmoari, zodiac batek etendako **aparioaren** kordela bezain laxo gelditu behar du gora aitzina ausartago garamatzan matxinadak, hala dute erabaki inongo Agintaritza Gorenean. Koldo Izagirre

---

apariziño ik **aparizio**.

---

aparizio *(orobat **apariziño** g.er.) iz* agerraldia; agerpena.

Barruan agerpen bat: **aparizio** bat, alegia; larruazal zurbila, begi marroixka argiak, ezpainak arrosa indarge batekoak, soina argala. Unai Iturriaga

-Agerpen bat, **apariziño** bat. Unai Iturriaga

Neska gazteak hurbildu eta konfesatzen edo deskribatzen zioten zeinen apainak ziren beste **aparizio** haiek, ametsetatik segika etorriak. Anton Garikano

Batek daki, beharbada **apariziño** legez erregistratu gurako du, ea eliza lehen baino lehen basilika izendatzen duten. Josu Landa

Berak, Lilyk, Augustus Carmichaelek, hirurek sentitu bide zuten umekeriak besterik ez direla gure **aparizioak** , inoren aurrean ezagun egiten gaituzten gauzak. Anton Garikano

Elektrotxoke tratamenduarena eta Lili Marlenen **aparizioa** ; depresioaren aurkezpena airezko bula barnetik; Abu Graibeko argazkien iduriko eroen haragi metak. Herria

---

aparkagune *iz* aparkalekua.

Hor lurpez egitekoa dute hiru ehun auto sartzen ahalko diren **aparkagune** bat. Herria

Obran hasiak ziren Miarritzen Bellevue izeneko plaza arrunt arramoldatzeari buruz, plaza hortan lurpez eginez **aparkagune** berri bat, hiru ehun bat autoren kokatzeko tokiarekin. Herria

Horiek hola, beti berdin beharrezkoa dela **aparkagune** bat Bellevue plaza hortan lurpez egitea, hori ere azpimarratu du auzapezak. Herria

Elkarte batek dei egin du Pauerat hortakoa den auzitegiari baizik-eta **aparkagunearentzat** gauzak ez direla behar bezala egin, untsalaz legezko ikerketa berezi bat beharko zela akulatu. Herria

---

aparkaldi *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi) iz* aparkatzeko denbora tartea.

Normalean, gorabeherarik gabe sar daiteke aparkalekura -botoi bat sakatu, eta txartel bat ematen du makinak-; irtetea, ordea, zailagoa izaten da batzuetan, doako **aparkaldia** luzatu egin dutelako batzuek, edo sistema, bat-batean, bertan behera geratu delako. ETC-literatura, saiakera

Miraria gertatu da, autoarentzako tokia topatu dugu eta gure **aparkaldia** mugatua dela gogorarazi digu seinale batek. ETC-prentsa

Gehienez astean hiru eguneko **aparkaldia** egin ahal izango dute autokarabanek lekuan -jarraituak edo jarraitu gabeak- eta **aparkaldiko** denbora gaindituz gero, horri dagokion zigorraz gain ibilgailua erretiratzea ere ekar dezake. ETC-prentsa

Aparkaldiko argiak ere isiotu ditzakete besteen ordez, edo, bestela, ilaran aparkatuta badaude, galtzadaren aldeko posizioko bi argiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ibilgailuen trafikoa nahitaez erraza izan behar da, betiere oinezkoak kaleetatik ibili ahal izateko moduan, eta **aparkaldi** mugaturako neurriak ere ezarri behar dituzte, **aparkaldiak** txandaka egingo direla bermatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurrean azaldutako baldintzak betetzen dituenarentzako, egun osorako **aparkaldiak** 0,70?ko kostua edukiko du. ETC-entziklopedia

---

aparkaleku *(orobat **aparka leku**)* **1** *iz* aparkatzeko lekua. ik **aparkatoki**; **aparkagune**; **aparkamendu**; **aparkatoki**.

La Mercedeko zubi ondoan **aparkaleku** bat autoz mukuru. Unai Iturriaga

Goizeko eguzkiak zerbitzuguneko **aparkalekua** argiztatzen zuen, leihate handitik harata. Aingeru Epaltza

Bizitegiez bestalde izanen dira saltegi eta bulego egoitzak bai eta bost ehun bat autoren **aparkalekua** eta berdegune batzu oraino bestalde. Herria

Gerritik aterata, pistola eskuan hartu eta, handik begira, ondo ikusten zen kuartelaren sarrera eta kamioien **aparkalekua**. Joseba Sarrionandia

Aparkalekua beterik dago. Anjel Lertxundi

Auzapezak ihardetsi dio hiriak berak dituela **aparkalekuak** kudeatzen. Herria

Aparkalekuan zegoen taxi baterantz zihoan, nik jarraitu egin nion. Bernardo Atxaga

Ordu hartan hiruzpalau kotxe besterik ez zen gelditzen **aparkalekuan**. Joxemari Urteaga

Motozikleta **aparkalekuan** utzia zuen. Unai Iturriaga

Autoa **aparkalekuan** utzi eta Muelle tabernan sartu zen Anjelmari. Unai Iturriaga

Ospitaleko **aparkalekuan** utzi zuen autoa. Ramuntxo Etxeberri

Aparatuan jarrita neukan zinta hoteleko **aparkalekuan** ordu batzuk lehenago aukeratutakoa zen, Ben Websterren grabazio zahar bat. Bernardo Atxaga

Gureak gutxi ez balira, dendak, hozkailuak, suak, den-dena garraiatu behar izan dugu aireportuko **aparkalekuan** zain genuen beste furgonetaraino. Patxi Zubizarreta

Ospitaleko **aparkalekuan** utzi zuen autoa. Ramuntxo Etxeberri

Lurra ihartzeaz aspertuta, udazkenerako buelta egina zuen giroak, hilerriko **aparkalekuan**. Aingeru Epaltza

Azkenean Callao zinema inguruko **aparkalekuan** utzi zuen autoa, eta Santo Domingoko aldapatik, oinez, Errege Jauregira heldu ginen. Ramon Saizarbitoria

Etxarri aldameneko **aparkalekuan** montatua zuten barrikada erraldoiaren gainean plantatu ziren, frantses eta euskaldun banderak airean, **Aparkalekuko** sarrerara hurbildu ahala, bere exekutibo praken eskumako poltsikoan sartzen du eskua, autoaren giltzei eraginez, han daudela konprobatuz. Itxaro Borda

Kanoiaren parte bat ikusten zen handik, baina Stephenen arreta laster desbideratu zen **aparkalekuko** beste autoetara. Xabier Olarra

Kanpoan bost bat minutu eman behar izan genituen **aparkalekuko** enplegatu bat txoferraren bila joan zen bitartean, auzoko ostatuetako batean baitzegoen. Fernando Rey

Handik irten, eta **aparkalekura** jo zuten. Patxi Zubizarreta

Miarritzeko aireportuko **aparkalekura** heldu gara! Ramuntxo Etxeberri

Amyk Virgili besotik heldu eta bidea erakutsiz, autoa zegoen **aparkalekura** iritsi ginen aireportu jendetsua gurutzaturik. Xabier Olarra

Aparkalekurako bidean bikote bat ikusi nuen lorategian poliki paseatzen. Bernardo Atxaga

Autoen motor hotsa iristen zitzaigun orain hoteleko **aparkalekutik**. Bernardo Atxaga

Bestetako lasterketa, Laborde **aparkalekutik** abiatuko da. Herria

Zaletasun eta grina hori kontenplazio izateraino ailegatzen zen, txotxoloturik **aparkalekuetako** motozikletei so gelditzen zenean arratsean etxerakoan. Fernando Rey

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Autoen **aparkaleku** zabal bat ere eraiki nahi lukete, Urdazuriko alde hortan hura ere. Herria

Plaza azpian egin zuten **aparkaleku** berrian beti dago tokia. Tentsio handiko uneak bizitzen genituen, eta, ardura, **aparkaleku** abandonatu, anonimo eta zurpail argituetan trukatu hitz ahulek gure izpirituak garbitzen zituzten, itsas aldetik mehatxuz zetozen eurien gisa. Mikel Hernandez Abaitua

Aparkaleku hutsean negarra begietan zeuden, eta berriro ere zer egin ez zekitela geratu ziren, ez zerurako ez lurrerako, zeren lapurreta salatuz gero, aitonarena agerian geratu eta, nork zekien, beharbada Turkiara itzuli beharrean gertatuko baitziren. Patxi Zubizarreta

Aparkaleku hitsean, goizeko bietan autoan sartu nintzenean, sudur ahotsez kantatzen zuen Dolly Partonen zintaren bizkarrarekin garbitu nuen karroinez gogortu bitrailaren eremua. Itxaro Borda

Gau hartako **aparkaleku** zurpailean, urtarrileko haize mehe motzak hezurrak daldararazten zizkigutenean, bideari ekin aurretik, lagunaren ileak urri higitzen zirela gogoratzen nintzen. Itxaro Borda

Espaloi ertz guztiak zakarrontziz bete dira, lurpeko **aparkaleku** karioak eraiki dituzte eta, beharraldi batean kalean nezesidadez konplituz gero, zure gernu isuria urre ordainez kobratuko dizu hemengo Udaltzaingo beti ere erneak. Aingeru Epaltza

Arnasestuka eta pauso bat gehiago eman ezinik nengoen kanpoko **aparkalekura** iritsi orduko. Aingeru Epaltza

Ez ninduen sobera harritu lurpeko **aparkalekuko** makinak nire billetea onartzeari uko egiteak. Aingeru Epaltza

Kanpoan bost bat minutu eman behar izan genituen **aparkalekuko** enplegatu bat txoferraren bila joan zen bitartean, auzoko ostatuetako batean baitzegoen. Fernando Rey

3 (hitz elkartuetan)

Geltokiaren ondoko **aparkaleku** plazan ginauden jende multxo bat. Herria

Aparkaleku -kale bat behar zuen gureak, hortik zarata. Joxe Austin Arrieta

Kansas estatuko lautada zabal bat gogora duen **aparkaleku** -zaindari bat, Art, du pertsonaia nagusia. Iban Zaldua

Mexikon zebilela, Phoenixen zebilela, eta Del Monten zebilela, non **aparkaleku** zaintzaile batek esaten baitzuen han egona zela lapurreta izan zen gauean. Xabier Olarra

Herriko etxearen asmoetan da **aparkaleku** kopurua emendatzea (47-tik 64-etara).Zubia bazihoan Sinketenetik eta Arnegizaharreko alorrera, zeina orain auto **aparkaleku** bilakatua baita. Herria

Erromeria, ezker pareta aitzinean (autobus **aparkaleku** ondoan)," Kiki Bordatxo"-k alaiturik. Herria

4 ***bizikleta aparkaleku*** *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Izan ere, udal plangintzaren arduradunen aurreikuspenerako gaitasun falta argi geratu zen, berriro ere, autobus geltoki berriko **bizikleta-aparkaleku** zikoitza egin

zutenean. ETC-literatura, saiakera

Bidaiarien eraikinak oin laukizuzena du, bestibulua jasotzen du behe solairuan eta **bizikleta aparkaleku**, igogailu, txarteldegi, balioztatze makina eta 2017tik desfibrilagailuz ere hornituta dago. ETC-entziklopedia

Geltokiak sarbide bakarra du, arrapala bidezkoa, eta kanpoaldean **bizikleta aparkalekua** du. ETC-entziklopedia

Txartela sartu, pasahitza idatzi, makinaren agindua hautatu eta **bizikleta aparkalekuan** sartu. ETC-prentsa

150 **bizikleta aparkaleku** berri ipiniko ditu, herrian zehar banatuak. ETC-prentsa

Puntuaziorik baxuena 7,5ekoa da, auto eta **bizikleta aparkalekuetako** antolaketan; datozen urteetarako hobekuntzak iragarri dituzte. ETC-prentsa

Eta bestetik, **bizikleta aparkalekuak** egiteko, Udalak gordeta dituen apurtutako hesiak aprobetxatuta. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aparkaleku bat (13); **aparkaleku batean** (8); **aparkaleku baten** (5); **aparkaleku berri** (6); **aparkaleku gehiago** (4); **aparkaleku gisa** (6); **aparkaleku handi bat** (3); **auto aparkaleku** (6); **autoen aparkaleku** (3); **autoentzat aparkaleku** (3); **hamabost aparkaleku** (3); **ondoko aparkaleku** (4)

aparkalekua egiteko (5); **aparkalekua izango** (5); **autoren aparkalekua** (4)

aparkalekuak ere (3)

aparkalekuan utzi zuen (3); **aparkalekuan zegoen** (4); **bateko aparkalekuan** (3); **hoteleko aparkalekuan** (3); **jauregiko aparkalekuan** (3); **loiuko aireportuko aparkalekuan** (4); **lurpeko aparkalekuan** (3)

gaztelu plazako aparkalekuaren (3)

aparkalekuetan utzi beharko (3)

aparkalekuko langileek (3); **loiuko aireportuko aparkalekuko** (4)

aparkalekura iritsi (3); **atzeko aparkalekura** (3)

---

aparkamendu 1 *iz* aparkalekua; aparkatzea.

Martin azaldu zen **aparkamendutik** etorrita, eta terrazaren sarreratik begira gelditu zitzaigun. Bernardo Atxaga

Begiak, aurrena, mendi oineko **aparkamenduan** dauden auto bakanetarantz dihoazkio, eta ondoren inguruetako pinudien errainuetara eta behekaldeko haranean nabarmen ageri diren industriaguneetara. Bernardo Atxaga

Bere adiskideen komentarioa entzun kirolari edo telebistako programari buruz, udaltzainarekin eztabaidatu **aparkamendu** desegoki bategatik, eta horri guztiari aurre eginez beste aldean kokatuko da ia konturatu gabean. Bernardo Atxaga

2 *Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendu (corpusean ez dago; ETCn 6 agerraldi)*

Gasteizko Udalak gehiegizko tarifa kobratu zuen iragan urtarrilaren 2tik 8ra bitartean TAOko (**Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendua**) parkimetroetan. ETC-prentsa

Hortaz, egun, ia Iruñe osoan dago **Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendua** zerbitzua (TAO). ETC-prentsa

Barrualdeko herrietatik hondartza gosez doan jende oldea hartzeko prest dituzte zerbitzu eta azpiegitura gehienak, eta zenbait herritan piztu dituzte TAO makinak ere **Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendua**). ETC-prentsa

---

aparkatoki *iz (orobat **aparka toki**)* aparkalekua.

Karia hortarat, ortzirale huntan eta larunbatean, eskeak izanen dira saltegien **aparkatokietan** . Herria

Aparka toki horiek argibide pano batzuekin banatuak dira, nun zenbat denbora egoiten ahal den ikusten ahalko da. Herria

---

aparkatu, aparka(tu), aparkatzen **1** ibilgailu bat leku jakin batean utzi.

-Aparka ezak eraikuntzaren aurrean -esan nion gidariari. Rafa Egiguren

Bere hoteleko sarrera baino hogei metro lehenago **aparkatu** nuen autoa. Bernardo Atxaga

Nik, aurreko egunean auto bat alokatu, eta, leku librea aurkitu bezain pronto, jostailu-dendaren aurrean **aparkatu** nuen. Iban Zaldua

Autoa **aparkatu** zuen Albertek, Senaren aurrez aurre, eta ontzia nekez nola igarotzen zen begira geratu ziren biak, autotik irten gabe, leihoak zabalik, haizetako ezin garbiagotik. Jon Muñoz

Bide-bazterrean **aparkatu** zuen limusina. Jon Muñoz

Ez genuen besterik esan, harik eta Ametzagainera ailegatu, bertako etxe atarian barik mendi bidezidor batean sartu, tarte bat aurrera segitu, eta bazter batean **aparkatu** genuen arte. Pedro Alberdi

Autoak Hiriburun barna eta urrunago ere **aparkatu** behar izan dituzte bestaliarrek. Herria

Jamesek autoa **aparkatu** ohi zuen lekuan furgoneta zahar bat zegoen, marrazkiez apaindua, eta, hala, aurrera jarraitu behar izan zuen, blokearen bukaeraraino. Koro Navarro

Ez kendu kaskoa -esan zidan **aparkatu** genuenean-. Xabier Olarra

Seinaleek zorrotz debekatzen dute polizia-etxearen aurrean **aparkatzea** . Oskar Arana

Kostatuko zitzaion **aparkatzea** orduan! Xabier Paya

Bai, beterik zeuden jatetxearen aurre-aurrean **aparkatzeko** zeuden leku guztiak. Oskar Arana

Kamioiaren bolanteari beso biekin helduta, Tapax txatarra-zalea **aparkatzeko** maniobra egiten ari zen. Pablo Sastre

Eguraldi txarra, haize zakarra eta **aparkatzeko** lekurik ez. Lourdes Oñederra

Hazparneko karriketan autoen **aparkatzea** neurritua izanen da abendoaren 20 etik goiti. Herria

Ordu horretan ez da trafiko handirik izaten, eta erraz aurkitzen dugu non **aparkatu** , baita etxe aurrean bertan ere. Patxi Iturritegi

2 (da aditz gisa)

Aparkatu naiz urrunago, eskuin, kafe bat hartzeko han berean::goiz batzuen kafearen kirets goxoa! Piarres Aintziart

Bere hotelaren parean **aparkatu** ziren. Ramuntxo Etxeberri

3 (era burutua aditz laguntzailerik gabe)

Atoi erraldoi bat ikusi zuen Ruche jaunak, liburu-dendaren aurrean **aparkatua** . Jon Muñoz

Horixe egingo dut hurrengo egunetan: bizikleta **aparkatuta** utzi aldi baterako eta batetik bestera ibiliko autobusez, astebete inguru baitaukat eskualde hau hobeto ezagutzeko. Jon Arretxe

Kasinoaren goialdean utzi du **aparkatuta** trailerra, Ryder konpainiakoa. Javi Cillero

Enbragea erretzen, geldiro doa autobusa, bigarren ilaran **aparkatutako** autoek utzitako pasaleku estuetan milimetroak neurtzen. Urtzi Urrutikoeetxea

Hantxe, bigarren lerroan **aparkatutako** kotxe dotore batean Suso, atzealdeko jesarlekutik deika, kotxe barrura sartzeko keinua eginez. Paddy Rekalde

Poliziak jakinarazi duenez, autoa giltzaz itxita zegoen, bide bazterrean **aparkatuta** . Berria - Gaiak

Volskwagen furgoneta zahar bat dago **aparkatuta** etxerako sarbidean. Oskar Arana

Berehalaxe plaza izkina batean **aparkaturik** zegoen banaketa-furgoneta baten atzean ezkutatu nintzen. Joxemari Iturralde

Marielexa sarreran auto asko, nonahi **aparkaturik** . Pako Aristi

Ondoko kalean **aparkaturik** nuen autora iristean bakarrik mantsotu nuen pausoa. Joxean Agirre

Azkenean oinez joatea erabaki zuen, hura baitzen Yamaha **aparkaturik** zeukan tokira ailegatzeko modurik azkarrena. Migel Angel Mintegi

Neure kotxea [...] Errobi ibaiaz bestaldean **aparkaturik** utzia nuen, Euskal Erakustokiaren parean. Txillardegi

Zerbitzariak jira egin du eta, berriz ere **aparkaturiko** autoen ilarak zeharkatuz, ostera ere sartu da utzi berria zuen atetik. Joxemari Iturralde

Trafikoa dezente murrizturik zegoen, ia ez zen bigarren lerroan **aparkaturiko** kotxerik ikusten eta espaloietan zebiltzan oinezkoak presaka zihoazen etxerantz. Migel Angel Mintegi

Zinemako karteldegia aztertua nuen erredakzioan eta ez nuen atzeman autoa **aparkaturiko** tokitik ateratzeko merezient izanen zen filmerik. Aingeru Epaltza

Ez da ezer gertatu -esan zion autoa **aparkatutakoan**, bere zirrara guzti-guztiak berreskuratuta, berriro esku leuna berna gainean pausatuz-. Sonia Gonzalez

Nahikoa du inoiz gaizki **aparkatzeagatik** isun bat jasotzea edo polizia-auto bat ikustea, gogamenean indarkeria-irudiak agertzen has dakizkion. Xabier Olarra

Discopubaren sarrera aurrean auto bat espaloian txarto **aparkaturik**, kapot gainean jesarritako neskaren harribitxi begiek inguruko guztia arakatzen dute. Sonia Gonzalez

Kristal gaineko nahiz buru barneko lurrinak lausotzen zituen karrika hutsak, autoak lerro-lerro **aparkatuak** eta kale-argien distira mamu-sortzailea. Aingeru Epaltza

Ez dakin zerk erakarri zuen hire arreta, baina autoa bigarren ilaran **aparkatu** eta di-da erosi huen briotx zatia. Iban Zaldua

4 (era burutua izenondo gisa)

Kalean alde banatako espaloien ondoan kotxe **aparkatuak** zeuden. Fernando Rey

Auto **aparkatuek** guardia ematen zidaten, nola txalupa hondartuek itsasontzia hutsegindako marinelari. Aingeru Epaltza

Bidexkaren beste aldean auto **aparkatuen** ilara bat zegoen elizaren atzean, eta gauza bat bururatu zitzaidan. Fernando Rey

Ez urrun, gizon bat jaitsi zen auto **aparkatu** batetik, baina Josebak ez zuen ikusi. Iñaki Zabaleta

Auto **aparkatuz** beteriko kale ilun batean. Iñaki Mendiguren

5 irud/hed

Ideia edo irudi hori urtetan **aparkatuta** izan dut, ontzen, eta berreskuratu dudanean, orduan bai hasten naizela pentsatzen, idazten ari naizena ulertzeko hamabi bat urtetik gorakoa izan beharko lukeela irakurleak. Ana Urkiza

Nire gizonak askotan esaten du alde ezkorrak **aparkatu** eta baikorrekin bakarrik gelditu behar dugula. Ana Urkiza

Haientzat, unibertsitatea beste zerbait da: gazteak **aparkatzeko** tokia behabada? Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

6 ***baterian aparkatu***

Orduan, Koiote txiza egiten hasi da **baterian aparkaturiko** Opel Vectra baten kontra. Patxi Iturritegi

Kat **baterian aparkatutako** bi autoren artean gelditu zen kale itxiaren sarrerarantz begira, Eberi bere intimitatearen babeserako iruditu zitzaion keinuan. Sonia Gonzalez

7 ***bigarren ilaran aparkatu***

Autoa **bigarren ilaran aparkaturik** zegoen, Olatz barruan zuela. Harkaitz Cano

Enbragea erretzen, geldiro doa autobusa, **bigarren ilaran aparkatutako** autoek utzitako pasaleku estuetan milimetroak neurtzen. Urtzi Urrutikoeetxea

Ez dakin zerk erakarri zuen hire arreta, baina autoa **bigarren ilaran aparkatu** eta di-da erosi huen briotx zatia. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aparkatu behar dute** (3); **aparkatu genuen** (6); **aparkatu nuen** (10); **aparkatu zuen** (6); **aurrean aparkatu** (4); **batean aparkatu** (4); **bazterrean aparkatu** (3); **non aparkatu** (3); **ondoan aparkatu** (4)
>
> **aparka leku** (4); **aparka lekuan** (4); **aparka tokiak** (3); **aparka tokian** (4); **auto aparka** (6)
>
> **aparkaturik zegoen auto** (3); **autoa aparkaturik** (3)
>
> **txarto aparkaturiko** (3)
>
> **aparkatuta utzi** (6); **aparkatuta zegoen** (7); **aparkatuta zeuden** (13); **aurrean aparkatuta** (5); **autoa aparkatuta** (5); **bide bazterrean aparkatuta** (3); **ondoan aparkatuta** (5); **zegoen aparkatuta** (3)
>
> **aparkatutako autoen** (3)
>
> **aparkatzeko arazoak** (4); **aparkatzeko leku** (6); **aparkatzeko lekua** (4); **aparkatzeko lekurik** (6); **aparkatzeko tokia** (5); **autoak aparkatzeko** (3); **autoen aparkatzeko** (4)

---

aparkatze *iz* ibilgailu bat leku jakin batean uztea.

Alde Zaharreko **aparkatze** murriztua medio, nora erabaki gabe kausitu nintzen Zabalguneko gure etxetik hurbil. Aingeru Epaltza

Udalak hiritarrak torturatzeko modu berria asmatu baitzuen bizkitartean, auzo bakoitzeko **aparkatze** noiznahikoa bertakoei mugatuz. Aingeru Epaltza

Aparkatzea galaraztearren Udalak paratutako jardineretariko batera hustu nuen sabela. Aingeru Epaltza

Hazparneko karriketan autoen **aparkatzea** neurritua izanen da abendoaren 20 etik goiti. Herria

Jadanik aipatu dugun bezala, Hazparneko karriketan auto **aparkatzea** neurtua da. Herria

---

aparpean *adlag* aparraren azpian.

Lehen mantalak gordeta eta orain **aparpean** ezkutuan dagoenak ez luke erakarmenik izango, agerian dagoenak sotiltasunik ez balu. Anjel Lertxundi

---

aparraldi *(ETCn **74** agerraldi, horietatik **48** azken sei urteetan) iz adkor* goraldia.

Aparraldia ere izan zuen bertsolaritzak 1990eko hamarkadako lehen bi-hiru urtetan. Andoni Egaña

Jaialdiak ugaritzearekin, **aparraldiaren** sasoietan batik bat, bertsolariak sarri azaltzen ginen kexu saio osteko elkarren arteko txolarteetan. Andoni Egaña

Bertsolaritzak 90eko hamarkadan izan zuen **aparraldiaz**, bertsolariaren funtzionamenduaz eta bertsoaren osatze prozeduraz idatzi du, besteak beste: "Bertsoak egin ahala egiten da ongien", esanez hasten du bere jarduna, bertsolariaren barne-mekanismoak azaltzean. Berria - Kultura

---

aparretan 1 *adlag* oparo.

Gaur **aparretan** dabilen Euskadiko Orkestra Sinfonikoa nola abiatu zen, bada, Enrike Jordá maisuaren ordenetara kontzertu borondate onez ehoriko harekin? Pello Zabala

Nire gainbeherako urteak auskalo nongo bazter galduan eman behar baditut, **aparretan** eta dotoreziaz igaro nahi ditut. Oskar Arana

2 ***poz-aparretan***

FBIko SIS-basque adarrean lan egiten dutenetako batzuk, antikomunista porrokatuak, marea gorarekin **poz**-**aparretan** dira. Edorta Jimenez

Edanean **poz aparretan**, irudi zuen Armadako soldaduak-edo zirela, baina ziotena ez nien hain zehatz endelegatzen, galegoz-edo mintzo baitziren. Edorta Jimenez

---

apart 1 *izond* aparte dagoena.

Preseski zonbait egun lehenago eta hilarririk ageri ez den leku **apart** horretan Jaun Erretor berriak benedikatu du" hautsak ezartzeko" moldatu den xokoño bat. Herria

Hiltzaile talde bat topatu zuen ezustean Ruche jaunak, armaz ezin hartuzko gotorleku batean giltzapetutako fanatiko **apart** baten aginduz egiten zituena bere hilketak. Jon

Muñoz

2 neurriz gainekoa dena.

Baina bila nabilena bezalakoak gutxi -esan zion honek-, ez baita ilehori arrunt bat, emakume **apart** bat baizik, Play-Boy aldizkarian azaltzeko modukoa. Migel Angel Mintegi

Balio zuen ere ikusteko poloniarrak ez direla horren txarrak hango partidan itxura penagarria eman zuten, eta pare bat gazte **apart** badituztela. Berria - Kirola

Maskaradei eta pastoralei estuki lotuta iritsi da gaurdaino dantza tradizio **apart** hori. Berria - Kultura

Hau da, jazz latinoaren egoera biziki ona da berau lantzen duten musikari **apartak** daudelako. Berria - Kultura

Kritikari gehienen ustetan, nobelak ez dira **apartak**, baina bai dokumentu ezinbestekoak azken urteotako Baroja ezagutzeko. Berria - Kultura

Jazz pieza estandarrak jotzen ditu, New Orleans Jazz Bandeko musikari **apartek** babestuta: Simon Wettenbal (tronpeta), Jerry Zigmont (tronboia), Cynthia Sayer (pianoa), Hendi Davis (baxua), Conald Fowlkes (kontrabaxua) eta Ron Garcia (bateria). Berria - Kultura

Mirto Czentovic umezurtz txiro erdi pepelerdoa, xakerako dohain **apartek** munduko txapeldun izatera goititua, Markos Zapiain

3 *adlag* urrun; bereiz.

mundua hor dago, baina ni bertze mundu bat naiz, eta mundutik **apart** nago. Joan Mari Irigoien

Era honetan gizakiak Jainkoagandik urrundu nahi du Jainkoaren borondateari men eginez eta Jainkoagandik **apart** gertatuz: hau da nire bekatuaren egiazko penitentzia. Joan Mari Lekuona

---

aparta 1 *izond* ohiz kanpokoa; neurriz gainekoa. (pertsonez)

Louise Orthez zen bera, sei-zazpi urtean ikusi gabe neukan emakume **aparta**. Hasier Etxeberria

-Zu bai emakume **aparta**! -esan zuen itolarriak jota. Lopez de Arana

Ezagutu egin behar duzu, Ellie, gizon **aparta** da. Lopez de Arana

A, baina jaun **aparta** duzue han, hori bai, Robine zoragarri hori. Karlos Zabala

Mutiko **aparta**, Unai, fidagarria arras. Aingeru Epaltza

Aitak asko hitz egiten zuen, hiztun **aparta** baitzen, baina, momentu batetik aurrera, gehiegi hitz egiten hasi zen. Joan Mari Irigoien

Ikasle **aparta** zen Chuck hori, alferrik galdutako talentua. Karlos Zabala

Artista **aparta** benetan! Askoren artean

Eta, hara, gogora etorri zitzaizun Miarritzen ezagutzen zenuen ilehori **aparta**. Migel Angel Mintegi

Diamanteak bezain garesti saltzen den beltz indartsua, lanerako **aparta**.Izan ere, imajinazino beroa behar da, zozoa adimendutsu idurikatzeko, zeren kantari **apartak** dira zozoak, baina ez oso argiak. Felipe Juaristi

Emazte: ez dinat uste Troiatik osorik iritsiko direnik akaiar adats-eder guztiak, troiarrak borrokalari **apartak** baitira. Juan Kruz Igerabide

Esploratzaile buruarin haiei laguntza eskaintzeko prest egon ziren Kalaallit Nunaateko inuitak; txakur eta leren jabeak, ehiztari trebeak eta lur haien ezagutzaile **apartak** izaki, inuitak oinarri sendoa izan ziren hainbat espediziotan. J.M. Olaizola "Txiliku"

"A l'ombre des maris" titulu umoretsuaren pean, hor lerrokatuko dira antzerkilari eta testu erraile **apartak**, Brassens kantari eta hitz jori sortzailea izanen dutelarik abiapuntu. Herria

Iduri luke -hau nik diot, ez berak- Richard Duppak aipatzen zuenaren erakusle **apartak** garela: "In language, the ignorant have prescribed laws to the learned". Pello Salaburu

Austriar mediku **apartak** inkontzientearen formulazioaz eta metodo psikoanalitikoaz psikologia eta psikiatria irauli zituenetik mende bat pasa eta gero, psikoanalisiak jarraitzen du eskaintzen ezinbesteko baliabide bat sufriarazten dion ezjakintasunari uko egin nahi dion subjektuari. Berria - Kultura

Luisa eta Angel lagunak gidari **apartak** izan dira gainera, eta haiei esker hiri kosmopolita eta anitz horren txoko guztietara heldu gara. Berria - Kultura

Jazz pieza estandarrak jotzen ditu, New Orleans Jazz Bandeko musikari **apartek** babestuta: Simon Wettenbal (tronpeta), Jerry Zigmont (tronboia), Cynthia Sayer (pianoa), Hendi Davis (baxua), Conald Fowlkes (kontrabaxua) eta Ron Garcia (bateria). Berria - Kultura

2 (bestelakoez)

Nik beti izan nuen sen paregabea, gauzez ohartzeko gaitasun **aparta**, emakume gehienek dutena baino zorrotzagoa, beharbada. Karlos Zabala

Amorragarria bere bizia eta ingurukoena katramilatzeko haren dohain **aparta**. Aingeru Epaltza

Idazkion irakurketak begi-bistan jartzen du autorearen giza eta kristau-heldutasun **aparta** -ez, noski, gizakion berezko kontraesanik gabe-, Frantziskok hain natural lortzen dituen sintesi handiek erakusten dutenez. Askoren artean

-Itxura **aparta** zenuen -esan zuen gizonak-. Mirentxu Larrañaga

Trebetasun **aparta** izan zuen paisajeak, hiriak, lurraldeak deskribatzeko, bertan egon gabe. Karlos Zabala

Hor kokatzeko eta iltzatzeko eman dituzten arrazoiak denak sinesten ditut: fede **aparta** dut txikitatik. Pello Zabala

Izan ere, Erosen ikasle abantailatua zen neurrian, harreman erotikoen hariak ehoteko abilezia **aparta** zuen Montsek, baita hariak elkarren artean lotzekoa ere, amaraun bat osatzen zuen arte. Joan Mari Irigoien

Baretasun asebete handia zen harena, lasaitasun **aparta**, deusek ere, ezta irribarre batek ere, aztoratzen ez zuena. Karlos Zabala

Helburu **aparta**, dotorea, beste ezer eta inon ez bezalakoa. Hasier Etxeberria

Fernando eta biok ezin genuen halako egokiera **aparta** alferrik galtzen utzi. Karlos Zabala

-Zain egongo nauk, bada -esan zuen bere artean-, ihesi joateko parada **aparta** aurkezten ez bazait, behintzat. Karlos Zabala

Zaharrek ziurtatzen zutenez, aspaldi prozesioa egiten zuten urtero san Gonzaloren estatuarekin eta emakumeek borrokan egiten zuten zakila nork margotuko, benetako gertakari **aparta** zen arteen munduan, eta gainera zorioneko artista ziur egon zitekeen ondo zerbitzatua egongo zela hurrengo 364 egunetan. Karlos Zabala

Hizkuntzak eta antropologiak konbentzitu gaituzte gure prehistoria altxor erabat **aparta** dela.Aza gorriak, goizargiak kolorea aldatu eta beren loratzearen ardo kolore **aparta** erakusten zutenak, hainbat zauri gorrimin eta purpura ilunez ñabarturik. Joseba Zulaika

Amorrazi egiten zen senarraren ateraldi haiekin, eta segurtasunik handienaz esan zion ilunabar **aparta** zela hura. Anton Garikano

Arrats berezia, goitik behera eta behetik gora **aparta**! Pello Zabala

Garai haren hipokrisia gogorragoa zen eta atsegin handia ematen zien bere manamenduei aurka egiten zietenei, gozamen **aparta** zen azkenean, poztasun handiagoa hartzen zenuen arauak urratzean, askoz hobeto ego-arentzat. Karlos Zabala

Horren guztiaren adibide bikainak, ale **apartak** dituzu biak. Xabier Montoia

Gauza **apartak** ikusi ditugu gaur. Elizen arteko biblia

Haren obra Halakhiko handian, Mi-neh Torah-n, adi gelditzen bagara, laster ohartuko gara Maimonek ordenatzeko duen ahalmen **apartaz**. Xabier Kintana

Zé Luisek dohain **apartak** zituen ohean eta, elkarrengandik bereizi ondoren ere, elkartu egiten ginen batzuetan eta larrua jotzen, behin fakultatean bertan, terrazan. Karlos Zabala

Tarteka, aire eta egurats garden garbi **apartaz** esnatzen da eguna, udazkena bixtaratuz. Pello Zabala

Bertsolaritza eta euskara maite dituen orok giro **apartaz** gozateko aukera bikaina izango du. Berria - Kultura

Guk ere eguraldi ona nahi dugu biharko, eguraldi txarra edo elurra egiten badu, ez delako Gavia igoko, eta ikuskizun **apartaz** gozatu gabe geratuko garelako. Berria - Kirola

Liburu honetantxe daude, adibide baterako, bi maitasun istorio guztiz **apartak**, zein baino zein xelebre eta ederrago: [...]. Koro Navarro

Mirto Czentovic umezurtz txiro erdi pepelerdoa, xakerako dohain **apartek** munduko txapeldun izatera goititua. Markos Zapiain

3 (adizlagun gisa)

Aparta zegoen, xamurra. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aparta baita (3); **aparta dago** (3); **aparta dauka** (4); **aparta duela** (5); **aparta dugu** (6); **aparta dute** (5); **aparta egin zuen** (7); **aparta egiten** (6); **aparta eman zuen** (4); **aparta emango** (3); **aparta erakusten** (3); **aparta erakutsi** (5); **aparta eskaintzen** (5); **aparta ez** (5); **aparta galdu zuen** (4); **aparta izan da** (6); **aparta izan zela** (3); **aparta izan zen** (17); **aparta izan zuen** (4); **aparta izan zuten** (3); **aparta izango da** (7); **aparta izango du** (4); **aparta ukan** (6); **aparta zegoen** (3); **aparta zela** (7); **aparta zuen** (4); **aukera aparta du** (9); **aukera aparta galdu** (5); **aukera aparta izan** (8); **aukera aparta izango** (8); **bikote aparta** (4); **borrokalari aparta da** (3); **buru aparta** (4); **da aparta** (3); **defentsa aparta egin** (4); **denboraldi aparta** (3); **dohain aparta** (4); **egun aparta** (4); **eguraldi aparta** (3); **emakume aparta** (6); **erakusketa aparta** (3); **erakustaldi aparta eman** (3); **erakusteko aukera aparta** (3); **ere aparta** (5); **etekin aparta** (3); **ezagutzeko aukera aparta** (3); **futbolari aparta** (4); **gaitasun aparta** (4); **giroa aparta zen** (3); **gizon aparta da** (4); **golegile aparta** (5); **harrera aparta** (3); **hasiera aparta** (3); **hizlari aparta** (3); **hiztun aparta** (3); **igotzaile aparta** (5); **ikuskizun aparta eskaini** (3); **irudigile aparta** (3); **itxura aparta** (3); **jokalari aparta dela** (4); **joko aparta** (4); **jotzaile aparta** (3); **laguntza aparta** (3); **lan aparta egin** (4); **leku aparta** (9); **musikari aparta** (3); **partida aparta** (3); **pertsona aparta da** (4); **sasoi aparta egin** (4); **talde aparta** (4); **toki aparta da** (3); **uzteko aukera aparta** (3)

apartak dira (7); **apartak egin** (5); **apartak izan** (5); **apartak ziren** (4); **aukera apartak** (4); **dantzari apartak** (3); **dohain apartak zituen** (3); **jokalari apartak ditu** (3); **minutu apartak** (3)

---

apartahotel *iz* gelak eta apartamentuak dituen hotel modukoa.

Txostenak dioenez, **apartahotela** egiteko orubea "ikastetxeei lotutako erabilera bakarrik zuen". Berria - Euskal Herria

Gorraizko **apartahotelaren** baimenak ez du legearen babesik. Berria - Euskal Herria

Apartamentos de Gorraiz SL enpresari Eguesen **apartahotel** bat eraikitzeko emandako baimenek ez dute "lege babesik". Berria - Euskal Herria

---

apartamendu ik **apartamentu**.

---

apartamentu *(orobat **apartamendu** g.er.)* **1** *iz* hainbat pisutako etxe batean dagoen bizitegi txikia.

Cesar Telleria pareko **apartamentu** batean zegoen orain, ispilu baten aurrean, ertz zilarreztatuak zituen maleta bat irekitzen. Harkaitz Cano

Ama bi gelatako **apartamentu** hartan bizitzen jarraitu zuen; oso ondo konpontzen zen auzokoekin. Eskarne Mujika

Marcel Martinen gorpuzkiak hobitik ateratzearen berri eman zutenean Parisen geunden jada, bi "chambre de bonne" batuz osaturiko **apartamentu** batean, Suger kalean, Saint Michel-ez bestaldean, L'Escargot-etik gertu. Ramon Saizarbitoria

Bertako etxebizitza-agentzia bateko agente batek sei edo zazpi **apartamentu** erakutsi zizkidan harri gorriztako etxeetan. Oskar Arana

Apartamentu hau inbertsio hutsa baita, diru beltza zuritzeko propio erosia. Migel Angel Mintegi

Salmentatik ateratakotik zegokien erdiarekin nahikoa eta gehiago izango zuten auzoan bi edo hiru logelako **apartamentu** bat erosteko. Oskar Arana

Didierrek eta Simonek seigarren solairuan zeukaten **apartamentua**. Bernardo Atxaga

- **Apartamentua** utziko duk, hire trasteak hartuko ditiagu eta etxera etorriko haiz. Joxemari Iturralde

Apartamentua ere gela bikoitzekoa da. Javi Cillero

Apartamentua edota bistadun atikoa, inmobiliariakoak deitzen zion moduan. Joxemari Iturralde

Gizon gazteak **apartamentua** errentan hartu zuenez geroztik, hiru dama jakinek erdietsi zuten -nork bere aldetik- xede handinahi hura. Mirentxu Larrañaga

-Ez al duzu gogoko nola dekoratu didan **apartamentua**? -esan zuen mutilak. Mirentxu Larrañaga

Nire **apartamentua** txukuntzen saiatu nintzen, baina laster konturatu nintzen guztiz ezinezkoa zela. Koro Navarro

85 metro koadroko **apartamentuak** izanen dira, garajearekin eta trasteentzako lekuarekin batera. Berria - Euskal Herria

Ezagutu eta handik laster Rulfo bisitatzeko aukera izan nuenean, Nazas 86ko bere **apartamentuan**, ondotxo egiaztatu zen nire susmoa. Juan Garzia

Ingriden adiskideak berak ere ez ziren haren **apartamentuan** sartzen, zakurrak izuturik. Gotzon Garate

Bere **apartamentuan** elkartu ginen, Central Park West-en. Oskar Arana

-Gogoratuko al haiz hire osabaren **apartamentuaren** kokapenaz? Iban Zaldua

Apartamentuaren txikitasuna azpimarratu zuen, lan-orduen nekea eta bakardade premia. Itxaro Borda

Apartamentua ez zegoen hutsik, zeren, argia pizturik egoteaz gain, ateen atzealdetik hainbat ahots nabarmentzen baitziren. Patxi Zubizarreta

Urduri samar bideratu zen **apartamentuen** aitzinaldean zegoen lorategi zabaletik barrena. Migel Angel Mintegi

Eskailera hura zaborrez beteta zegoen; **apartamentuetako** ateak zabalik zeuden. Koro Navarro

Gero, tranbia hartu eta California etorbideko **apartamentura** itzuli nintzen, hitzordua arte itxaroteko. Javi Cillero

Dagoeneko argiak pizteko garaia izan arren, itzalita zeuden **apartamentuko** argi guztiak. Harkaitz Cano

Haren **apartamentuko** txirrina jotzea lortzen bazuen eta hark ez bazuen onartzen, pentsatu zuen beti izango zuela taxi bat hartu eta bere etxera itzultzeko aukera, oraintxe bertan zegoen lekura. Joxemari Iturralde

Apartamentuko atea itxi eta gero, neskatilaren ahotsa entzun nuen, esanez: [...]. Juan Kruz Igerabide

Didier eta Simone lagunen **apartamentuko** leihoek patio handi batera ematen dute. Bernardo Atxaga

Apartamentuko leihora gehiago hurbildu zenean, asko harritu zuen zerbait ikusi zuen: [...]. Harkaitz Cano

Etxeko atezainarenean giltza bat utziko ziola, eta **apartamentura** igo eta han itxaroteko. Oskar Arana

Olatzek bere **apartamentutik** ikus zitzakeen Pasaiako kaleak eta hormak zirrikiturik utzi gabe estaltzen zituzten afixa haiek guztiak, Martak leihora gehiegi ez ateratzeko agindua emana zion arren. Harkaitz Cano

Maiana ez zen hiru egunez **apartamentutik** irten. Itxaro Borda

Ez dakit noiz alde egin zuten **apartamentutik** eta nola; Dick bakarrik gelditu zen han. Joxe Austin Arrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Noizbait elkartutako bi **apartamentu** handi zirela eta, sukalde bakarra izatea axola ez bazitzaizuen behintzat, nahikoa leku eta beregaintasun izango zenutela. Lourdes Oñederra

Arratsalde amaierarako errentan harturik neukan bi logelako **apartamentu** terrazadun bat First Street-en, Prospect Park-etik bloke erdira baino ez. Oskar Arana

Bi gelako **apartamentu** txiki bat aurkitu zuen, eta hantxe bizi ziren, pilaturik, bera, emaztea eta beren hiru haurrak. Eskarne Mujika

Eman dezagun Martarena dela: **apartamentu** txiki baina txukun eta moñoñoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Herbie-k dezente irabazten zuen, eta **apartamentu** txiki bat hartu zuten errentan hiriaren ipar-aldiriko bizigunean. Mirentxu Larrañaga

Burua altxatu eta begipean hartu du bere **apartamentu** ñimiñoa. Iban Zaldua

Apartamentu xume hartan ez baineukan balio handiko gauzarik. Joxemari Iturralde

Kyrak ez du uste **apartamentu** arrunt batean bizitzeko gai izango litzatekeenik; etxebizitza aldatu behar balu beste loft handiago batera aldatuko litzateke. Harkaitz Cano

Apartamentu altu batera goaz, eskaileretan gora. Joseba Sarrionandia

Apartamentua ederra da: sala handi bat, bi gela eta komuna. Harkaitz Cano

Bere senarrarekin eta seme adoptatuarekin beheko pisuan bizi da Mimi eta goiko **apartamentua** alokatu egiten du. Harkaitz Cano

Luxuzko **apartamentuak** egin behar zituztela. Iñaki Zabaleta

Gainera, PSEk eskatu du babes ofizialeko etxeen beste mota batzuk martxan jartzeko, bai eta zahar nahiz gazteentzako **apartamentuak** ere. Berria - Euskal Herria

Gela bakarreko **apartamentu** moblatua zen, alde batean jangelatarako baliatzeko zati bat eta komuna beste aldean zituena. Xabier Olarra

20.000 biztanletik gorako herriek lurzorua gorde beharko dute ekipamenduetarako lurretan, bertan alokairu merkeko **apartamentuak** (120-180 euro hilean) egin ahal izateko, gazteentzat eta edadetuentzat batez ere. Berria - Euskal Herria

Inork ez zuen kidearen jestu iluna ulertu, ongi pagatutako lan segurua eta **apartamentu** ederra bazuelako. Itxaro Borda

Lan ona, senar prestua, **apartamentu** erosoa. Oskar Arana

Zorionez, Queenseko bere aspaldiko **apartamentuan** bizitzen jarraitzen zuen, bere arreba alargunarekin eta lau katurekin batera. Oskar Arana

3 (hitz elkartuetan)

Nerabe zela, gurasoen etxea utzi zuen eta auto batean bizitzen jarri zen, harik eta **apartamentu** sail batean, The Royale Oaks izenekoan, ostatu hartu zuen arte, Yanktonen (Hego Dakota, AEB). Nahiko eraikin modernoa zen, zuriz eta urdinez margotutako bi pisuko **apartamentu** sail batez osatua. Berria - Kultura

Apartamentu -etxe txiki baten atean geratu ginen, Glendalen. Xabier Olarra

Beste polizia **apartamentu** -eraikinera korrika itzuli zen, laguntza eskatu zuen Churchi diruarekin alde egiten ez uzteko, eta atetik bazihoan momentuan harrapatu zuen. Xabier Olarra

Iritsi zen beste hartan izandako **apartamentu** -multzora. Migel Angel Mintegi

Denbora batez, Lajosek senipartea eskuratu zuenean, elkarrekin bizi izan ziren hiriburuan, nik sekula ezagutu ez nuen ezkongabe-**apartamentu** zoragarri batean Ander Irizar

4 ***apartamentu eraikin***

Gutxienez 17 pertsona hil ziren herenegun arratsaldean Mulhousen, Frantziako ipar-ekialdean, **apartamentu-eraikin** batean gertatutako gas isuri baten ondorioz. Berria - Mundua

Izeba **apartamentu-eraikin** batean bizi zen. Lopez de Arana

Beste polizia **apartamentu-eraikinera** korrika itzuli zen, laguntza eskatu zuen Churchi diruarekin alde egiten ez uzteko, eta atetik bazihoan momentuan harrapatu zuen. Xabier Olarra

5 ***hotel-apartamentu*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Hotel-apartamentua : bere egituragatik eta bere zerbitzuengatik ostatu unitatean bertan elikagaiak gorde, prestatu eta kontsumitzeko egoki diren instalazioak dauzkan establezimendua, erregelamendu bidez ezartzen diren betebehar teknikoak betetzen dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pendrive batean grabatu eta **hotel-apartamentutik** gertuko denda batean inprimatu nuen. ETC-literatura, saiakera

Aparthotelak edo **hotel apartamentuak**, lo egiteko gelaz gainera, otorduak prestatzeko sukalde bat eskaintzen duten hotelak dira. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **apartamentu bat** (13); **apartamentu batean** (13); **apartamentu batera** (3); **apartamentu etxe** (4); **apartamentu etxearen** (3); **apartamentu hartan** (11); **apartamentu honetan** (3); **apartamentu hura** (3); **apartamentu txiki bat** (4); **apartamentu txiki batean** (3); **bere apartamentu** (5); **zen apartamentu** (3)
>
> **nire apartamentua** (5); **zen apartamentua** (3)
>
> **bere apartamentuan** (10); **nire apartamentuan** (6)
>
> **apartamentuko atea** (4)
>
> **apartamentura heldu** (3); **apartamentura iritsi** (3); **apartamentura itzuli nintzenean** (3); **bere apartamentura** (4); **california kaleko apartamentura** (3); **kaleko apartamentura itzuli** (3); **nire apartamentura** (5)
>
> **nire apartamentutik** (3)

---

apartamentutxo *iz adkor* apartamentu xumea.

Fuentes Tiber-eko bere etxetzarrean bizi zen, ia Melchor Ocampo-rekin izkina egiten dueneko horretan; Rulfo, Nazas-en, Sena eta Rhin artean; gu, Ebro kaleko **apartamentutxo** batean, Nazas eta Pánuco artean; lagun ez ezik, bada, auzo ere baginen. Juan Garzia

Champs Elyséestatik hurbil **apartamentutxo** bat alokatu nion, garai hartan "maite-kabia" esaten zitzaien horietakoa. Matías Múgica

---

apartarazi, apartaraz(i), apartarazten du *ad* apartatzera behartu.

Burua bere bular artetik kendu behar izan zidan eta eskua bere sabelpeko zauritik **apartarazi** , galdera errepikatuta haren hitzen jabe izateko. Aingeru Epaltza

Horren penak mundutik **apartarazi** zuen Chaim Nossen. Koro Navarro

Nola ez bada, iruindar guztiak eta are nafar guztiak ere **apartaraziko** genituen noizbait Erromako printze ustelaren sehigotik. Aingeru Epaltza

---

apartatu, aparta(tu), apartatzen **1** da *ad* bereizi, urrundu.

Dirua zegoen zapata-kaxetako bat hartu, ehun mila pezeta **apartatu** , gutunazal batean sartu, eta etorri bezain isilka irten nintzen, ama ez esnatzeko. Juan Kruz Igerabide

Gugandik **apartatu** zen, estu-estu heldu zion bi eskuez barrari, tira egiten zion dardarka, atzean zuen kutxa bat estutzen zuen oinaz, eta salbaziora gidatu zuen kamioia, harrizko horma bat zuen bihurgune bat gaindituz. Koro Navarro

Mungimendu sendo batez -arretazko, albokako, atzeranzko mugimendu motel batez-, xingolaren loturatik **apartatu** nintzen, zimitarraren helmena baino harantzago. Koro Navarro

Malko eta negar etsigarri batzurekin hasi zen dena, inork ulertzen ez zuen mindura batekin, Cecilia bereetatik **apartatu** eta bereizten hasi baitzen, hain zuzen, bere gain zerbait jausi balitzaio bezala. Josu Zabaleta

Orain bake apur bat baino ez dut nahi, azken hilabeteotan bizi izan dudan guzti honetatik **apartatu** . Hasier Etxeberria

Behin betiko **apartatu** nahi zuten ghettotik eta ghettoaren kulturatik; sionista gisa batzuek, iraultzaile erradikal gisa beste batzuek, kasu batean zein bestean unibertsaltasuna predikatuz. Koro Navarro

Egipto aldeko gizasemea dugu, IV. mendekoa, eremuko bizitza bakartira **apartatu** eta lotu zena. Pello Zabala

Hiru gizonek behorrak geldiarazi zituzten, eta Kapistun haiekin geratu zelarik, Martin eta Bautista bata alde batera eta bestea beste aldera **apartatu** ziren. Koro Navarro

Gero parteak banatzen hasi ziren eta berdinak berdinekin batzen eta mundua irekitzen eta lohadarrak bereizten eta parte handiak ordenatzen, hots, ortzi garaia lurretik banatzen eta itsasoa **apartatzen** , ura bere gisara zabaltzeko. Xabier Amuriza

Cassius Clay erasoka hasi da, **apartatu** egiten da sarritan gero berriz inguratu eta boxeatzeko, Joe Frazierren inguruan dantzaka ari da, nahi bezala ezin sartuz. Joseba Sarrionandia

Eta orain, **apartatu** hadi leiho ondotik, gehiegi nabarmentzen ari haiz eta.Emadazu niri, zeure arditxo honi, grazia eta indarra, inolako gaixotasun, atsekabe eta oinazerengatik zugandik **aparta** ez nadin. Harkaitz Cano

Jaunari eta geure aita dohatsuari hitzeman genien hura, 43 hartatik inoiz eta inola **aparta** ez gintezen. Askoren artean

2 du *ad*

Txarrantxa hori dozena bat pertsona lotzeko soka gisara erabiltzen ari direla ohartu denean **apartatu** egin ditu begiak. Harkaitz Cano

Bi seme nituen nik, zure mirabe honek. Borrokan hasi ziren elkarrekin landan; ez zen han **apartatuko** zituenik gertatu, eta batak bestea jo eta hil egin zuen. Elizen arteko biblia

-Ongi! -esan zuen printzeak eta **apartatu** zituen papera eta lapitza. Matías Múgica

Jamesek dolar bateko billete bat **apartatu** zuen bingo gauetarako gordetzen zuen billete sortatik. Koro Navarro

-Ongi! -esan zuen printzeak eta **apartatu** zituen papera eta lapitza. Matías Múgica

Ahoa odolez gorri zuen, baina ez nituen begiak itxi, ez nuen begirada **apartatu**. Anjel Lertxundi

"Barkatu, baina ordu honetan xanpaina bakarrik edaten diat." Martinek **apartatu** egin zuen garagardoa. Bernardo Atxaga

Komandanteak irribarre egin du eta begiak **apartatu** ditut. Joseba Sarrionandia

Begirada **apartatuz** gero, soka ukatzen diogu itotzen ari denari. Harkaitz Cano

Gortina pixka bat **apartatu** eta hurbiltzeko keinua egin zidan. Matías Múgica

Farr jauna presaka zihoan High Streeten behera, zapataren lokarri eta pospolo saltzaileei gogorkeriaz uko eginez, jendetza zarpailetik begiak **apartatuz**. Koro Navarro

Begiak testutik **apartatu** ditut une batez, eta bitxia iruditu zaidan eszena batekin egin dut topo. Iban Zaldua

3 aukeratu.

Huraxe **apartatu** nuen nire eskolarako. Pello Zabala

Mahai gainean argi-neurgailua utzi eta giltza-sortan jadanik **apartatua** zuena eskuratu zuen. Joxemari Urteaga

Bikote bakoitzak nahi zituen moduko pilotak aurkitu eta **apartatu** zituen, nahiz eta Titinek eta Fernando Goñik aukeran bizixeagoak nahiago zituzten. Berria - Kirola

Ordenagailuan 'Lertxundi' abizena sartu eta, izen ugari agertuagatik, berehala **apartatu** ditut Joxe Mari Lertxundiren liburuak. Xabier Etxabe

Sartu ginen, bada, jantzi-denda batera, non haurrentzako mota guztietako arropak baitzituzten salgai; **apartatu** eta geureganatu genituen galtzak eta niki bat, inongo arazorik gabe, baita galtzerdi batzuk ere... baina, jertsea aukeratzerakoan, orduantxe sortu zen eztabaida. Joan Mari Irigoien

Arratsalde huraxe **apartatua** zuten, gutiziazko apaintze-lanetarako eta solasean aritzeko. Mirentxu Larrañaga

4 (era burutua izenondo gisa)

Ni bakartia izan naiz beti, ameslaria, filosofo **apartatu** moduko bat. Josu Zabaleta

Arratsean leku **apartatu** bat aurkitu dut; hantxe sutegi bat antolatu, gainean arragoa ongi mailakaturik ezarri, ordu erdiz goritu, eta hozten utzi dut. Juan Garzia

Eskualde **apartatu** hartan, Castro Verdetik hegoaldean, Ourique deitzen duten tokian. Jon Alonso

Zakur alderrai bat ikustea bera ez da ohikoa, segurutik bide **apartatu** eta maldatsu honetan maiz ibiltzea nahiago izateak libratu du sarean erortzetik. Jon Alonso

Etxe **apartatu** egoki bat utziko dizut, nahi baduzu, bertan otoitz egin eta jan dezazun. Josu Zabaleta

Jolas moduan hil genuen, merkatari ingeles bati ostutako lepoko urrezkoa genuelako aitzakian, ostatu **apartatu** batera ekarri ondoren, urrea maitea baitzuen oso. Felipe Juaristi

Egunsentiak lurrak argi berriz gainezkatzen dituenean eta hegazti nabarrek, baso **apartatuetan** hegan, bazterrak aire samurrean zehar euren txorrotxio gardenez betetzen dituztenean. Xabier Amuriza

Horra nolako adeitasunez dion berorri txoko **apartatuago** batera egiten gonbit: ez bedi joan, baina, berarekin. Juan Garzia

Ebakuntza egiten hasi bezain pronto ohartu nintzen esku hura malguegi zegoela, errazegi tolesten zela eta **apartatuegi** zegoela gorputzari lotzeko. Harkaitz Cano

Eta tantoka ari dira itzultzen, Patri, banaka eta binaka aireportu **apartatuenetatik**. Hasier Etxeberria

5 ***arima apartatuta*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Arima apartatuta saiatu nintzen, noiznahi hondora joango nintzelakoan; eta ikusirik ezin nuela coraclea zuzenean itsasontzitik urrundu, txopa alderantz jo nuen. ETC-literatura, saiakera

Ahohandi kolpera zuzendu zen eta lau pausotarako azpian etzana zeukan, bizkar gainean, erki saihespetan joaz eta hortzak lepazamarreko mamietan sartuta, **arima apartatuta** zakur amorratuak bezalaxe. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apartatu batean (3); **apartatu behar** (7); **apartatu ditut** (3); **apartatu egin zen** (7); **apartatu egin ziren** (4); **apartatu egin zuen** (3); **apartatu egiten** (3); **apartatu gabe** (8); **apartatu nahi** (3); **apartatu nintzen** (5); **apartatu nuen** (6); **apartatu ondoren** (3); **apartatu zen** (8); **apartatu ziren** (3); **apartatu zituen** (9); **begiak apartatu** (3); **begirada apartatu** (3); **eskua apartatu** (3); **pixka bat apartatu** (3)

apartatzen da (6); **apartatzen hasi** (4); **pilotak apartatzen** (3)

---

apartatze *iz*

Ik. Maiatzak 30koan, astearte eta ostiralak lan-kontuetan apropos **apartatze** horretaz diodana. Pello Zabala

Garbi dago **apartatze** prozesuak oztopatzeko joera dagoela. Berria - Euskal Herria

Behin interpretazio errukitsuena onartuz gero, ez dugu nekerik izango, ez ateko sarrailako arrosarena ulertzeko, ez arbeleko Marie hura, ez 'gizonezko ahaideak **apartatze'** harena. Koro Navarro

Burua jaso duzu, marrazten ari zaren palmeratik boligrafoa **apartatzearekin** batera. Jokin Muñoz

Pilota **apartatzea** Labriten eta Astelenan. Berria - Kirola

---

aparte **1** *adlag* bereiz; urrun.

Ilehoriak **aparte** edukitzen zituen bi hitz egoki esanda. Pello Lizarralde

Aitak alabarekin hitz egin nahi du eta biak **aparte** samar daudenez gero -hiri handi honetan distantzia laburrenak ere kilometrotan neurtu behar direnez- gure lana da komunikatzeko gogo eta egarri hori apurtu ez dadin saiatzea. Joxemari Iturralde

Aparte xamar eseri ginen, jendearen solasik entzun beharrik ez izateko lain, isats lemaren gerizpean, arropak erantzita, oinetakoak (hondarra kiskalgarri baitzegoen) eta galtzontziloak izan ezik. Joxe Austin Arrieta

Doinuz bakoitza bere gisakoa izanagatik, mamia ez dute hain **aparte**. Aingeru Epaltza

Kostako hauetatik nahikoa **aparte** gelditzen dira barnealdeko beste biak: 94 litro ateratzen zaizkio banaketan Gasteizi eta 77 Iruñeari. Pello Zabala

Gure leizea **aparte** samar zegoen. Juan Kruz Igerabide

Osaba-izebek ezin izan zuten beste ezer asmatu, baina etxetik irten aurretik, osaba Vernonek **aparte** hartu zuen Harry. Iñaki Mendiguren

Itsasoa ikusteko jarri dira ertzeneko mahaian, baina batez ere haren argitasun urdinean elkarren irudia hobeto dastatzeko, bost egun daramatzate eta **aparte**. Pako Aristi

Kurtso amaieran, irakaslearekin ohiko bilera amaiturik, irakaslea **aparte** hartu zuen, une batez, ama horrek: Joxerra Garzia

Ba klase partikularrak nahi dituenak **aparte** ordain ditzala, eta kito. Patxi Iturritegi

Baina Tootlesek **aparte** segitu zuen. Julen Gabiria

Logelatik ateratzean, **aparte** hartu du senarra, eta berarekin hitz egin nahi duela esan dio. Imanol Zurutuza

Zaharra eta **aparte** samar kokatua, baina, merke. Jon Maia

Kalitatezko ardoak **aparte** zerbitzatzen zituan. Xabier Olarra

Paradoxalki uniformeak ninduen jende zibilaren mundura itzuli: ontsa nintzen lagunen artean, baina beti ene bokazioak **aparte** ezarria eta nihaurek nahiz are gehiago baztertua, elizgizon bainintzen orduko, sotana harturik. Piarres Aintziart

2 (izenen eskuinean)

Txantxak **aparte**, apusturik egin nahi? Itziar Otegi

Bähr euskalariak esan zuen Orraze etor litekeela Orratz i gisako zerbaitetik, eta egia esan, fonologia **aparte**, semantika hutsari begiratuz ere, funtsean, esanahi primitibo berbera lukete. Patziku Perurena

Klasetik irten ginenerako pintada ezabatua zegoen, baina, Pertiz **aparte**, irakasle bakar batek ere ez zigun hari buruzko aipamen txikiena ere egin. Anjel Lertxundi

[...] dizut esango zer-nolako eguna pasa beharra izaten dizun jaiotzatik ehorzketara, kirol ikuskizunetatik justiziako epaitegira, NAN, autoaren matrikula, eskola, eliza, irrati-

telebistako albistegi, jaiegunen kalendario, etab., etab., biziera guzti-guztia, aipatu beharrik ez dagoen beste prezio altuagoko estualdiak **aparte**. Joxe Azurmendi

Gizakiak **aparte**, ez dugu Naturaren baitan deus berezirik ezagutzen haren Izpirituak bozkaria gaitzakeenik, eta harekin adiskidetasunak edo beste kidetasun mota batek lotzen ahal gaituenik. Piarres Xarriton

3 (-tik atzizkiaren eskuinean)

Izan ere, Padua -argitu zuen Georg Weinerrek-, ez zen Venezia bezala nahitaez joan beharreko lekua, ibiltarien emanetik **aparte** zegoen, Italiaren bihotzean. Anton Garikano

Hortik **aparte**, fakultate ospetsuren bateko kide guztiek sinatu eta kontrasinatutako inolako diplomarik ez bazuen ere, horrek ez zion kentzen, horrenbestez, oso gizon duina eta jakintsua izatea. Josu Zabaleta

Salomonen bizilekua errege-aulkiaren aretotik **aparte** zegoen, beste areto batean; biak tankera berekoak ziren. Bere emaztetzat hartu zuen faraoiaren alabarentzat egin zuen jauregia ere areto haren tankerakoa zen. Elizen arteko biblia

Baina hortik **aparte** dena ongi dabil! " Maika laguntza publikorik gabe ibiltzen zen antzerki festibala baten arduraduna zen. Ramuntxo Etxeberri

Harresi barneko Urbia hori segituan bukatzen da; bi kale luzetatik **aparte**, kalexka estu heze batzuk besterik ez dauzka, eta plaza. Koro Navarro

Abelek ezkerrean duten pendiz aldera ager bat egin du; dagoen tokitik ez du ez etxerik ez zati breaztaturik ikusten, eta errepidetik **aparte** xamar daudela egiaztatzeak lasaitu egin du. Pello Lizarralde

Ordu batzuetan umearengandik **aparte** egon den amak segituan galdetuko dizu: "kakarik egin al du? ". Arantxa Iturbe

Tuberkulosia pasea zen nire ama eta, Kochen baziloaren ekinetik babesteko, haur jaioberria harengandik **aparte** edukitzeko gomendioa egin zuten sendagileek. Joxan Elosegi

Hiru dimentsiotan jira-biran dabiltzanean elkarrengandik nahiko **aparte** dauden molekulak hurbildu egiten dira gainazal batek adsorbitzen dituenean. Irene Aldasoro

Oroitu nahi ez dudan Goierriko herri batean, jendea kristaubidetik **aparte** zebilelako hotsa zabaldu omen zen. Joxerra Garzia

Eta hi, lemazaina: eraman ezak ontzia uhin eta lurrun horietatik **aparte**, horko haitzetatik hurbil, oso kontuz. Juan Kruz Igerabide

Beste mendietatik **aparte** dagoen mendi bat da -mendi indibidualista-, eta turista gutxi joaten da hara. Koro Navarro

Afaltzeko bi talde osatu zirenean (ordu horietan guztiz ezinezkoa zen denontzako jatetxe egokia aurkitzea), talde banatan abiatu ginen eta gero, Blue Chicago pub-ean ere, berriro elkarrengandik **aparte** samarrean eseri ginen. Patxi Zubizarreta

4 (-z atzizkiaren eskuinean)

Nekazaririk baino ez zagok hemen, nire aitaz **aparte**. Eskarne Mujika

Baina eliza hartako sakristian denetarik egoteaz **aparte**, beste gauza bat ere bazegoen: Tabucchi entziklopedia oso bat. Unai Elorriaga

"Inozoez" **aparte** "beltzak" zeuden. Fernando Rey

Behin, kostaldeko hileta batean, apezaz **aparte**, beste inor ez zen kantuz ari. Daniel Landart

Gimferrer-en arabera, Borgesen zinezko iraultza eta haren meriturik handiena hizkuntzan datza (garbi dago tradizio bat sortu egin zuela, alde horretatik ere): nola ote liteke, baina, eder-bikaina hitza, bere adieraziaz **aparte**? Juan Garzia

Horretaz **aparte**, xehetasun bat (xehetasun bakar bat) ez zuen kontuan izan, bidaiaren presak zirela eta. Xabier Aranburu

Horren arabera, gainditutako dogmetako bat hau izango litzateke: badela kanpoko aldean zerbait, ilargia adibidez, bere ezaugarri propioak dituena gizakiez **aparte**. Pello Salaburu

Ez gintuan hamabietan etxeratuko, baina ñabardura horretaz **aparte**, dena pentsatu bezala gertatzen ari zuan. Aingeru Epaltza

Nik bai, porroarenaz **aparte** beste keru berezi bat sumatzen nuela -egin zuen Hausterren oin hutsari begira-. Iñaki Iñurrieta

Goiza izateko, Manhattango jende eta langileez **aparte**, turista tipiko asko ikusten zen eta horien artean gurasoak beren umeekin. Iñaki Zabaleta

Aukera egiteko orduan idazleok exajeratzen dugunaz **aparte**, alegia". Arantxa Iturbe

Harritzekoa da, gainera, ikustea, honetaz **aparte** garrantzi handia duten zenbait autorek, hala nola André Bazin-ek edo Jean Louis Comolli-k, adibidez, inertzia intelektual soilez nola jarraitzen duten "erretinako irudi-iraunkortasunaren" teoria guztiz okerrekoa eta, gainera, berez absurdua denari eusten. Josu Zabaleta

Hizkiak gehitzeaz edo kentzeaz **aparte**, hirugarren bide bat ere hartzen dute asmatitzek: hizki bat (edo gehiago) aldatzea. Iñaki Arranz

Zer esan, honi buruz? ezepziotxo batzuz **aparte**, ez dira zientziazki egiztaturiko konstatazioak, huts gabeki atereak -presenteon nahiz geroan- aurretik hautemaniko fenomenoetatik (nola baita ura berotzean baporatzea). Iñaki Heras

"Zer ariketa prestatu diguzu eta holako galdera-erantzunetaz **aparte** solas guti erabiltzen zuen harekin. Eneko Bidegain

Horretaz **aparte** gehitu beharra dut ordu batzuk eman dituela giltzapean, desmen-egiteagatikøø. Fernando Rey

Hauetaz **aparte**, beste ideia asko daude filosofia moralean askok eta askok onartuta, aurrekoak bezain arriskutsuak eta zenbatzea ere merezi ez dutenak. Esteban Antxustegi

Errateko zuhurki, euskalduntasunarenaz **aparte**, gasnak biltzen zituela bere mami zuriaren leunean, hemen gaindiko arazo politikoak, ekonomikoak, kulturalak eta psikologikoak batera. Itxaro Borda

5 (izenondo gisa)

Leku **aparte** batera eraman eta whiski bat atera omen zion." Barre egin zuen, eta guk berarekin batera. Bernardo Atxaga

Longainaren lepokoak jaso, eta inprimategitik bizpahiru etxaditara zegoen kafetegi jendetsura sarturik, mahai **aparte** samar batean eseri zen Nathaniel Hawthorne. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aparte batean (5); **aparte bizi** (16); **aparte dago** (6); **aparte edukiko** (8); **aparte egon** (11); **aparte geratzen** (6); **aparte hartu** (18); **aparte hartu zuen** (6); **aparte ibili** (5); **aparte samar** (28); **aparte samar zegoen** (6); **aparte utzi** (6); **aparte utzita** (25); **aparte zegoen** (13); **baina horretaz aparte** (6); **elkarrengandik aparte** (11); **horietaz aparte** (11); **horiez aparte** (9); **horretatik aparte** (5); **horretaz aparte** (54); **hortaz aparte** (13); **hortik aparte** (11); **izateaz aparte** (14); **kanpalekutik aparte** (5); **mundutik aparte** (18); **nitaz aparte** (5); **oso aparte** (12); **pixka bat aparte** (8); **puntu eta aparte** (8); **zugandik aparte** (5); **oso apartean** (5)

---

apartean *adlag* aparte.

Oso **apartean** bizi direla eurak, mendian, eta laguntza handia izan naitekeela ni, ondoko ohean, aitonak ez duela eta hitzik egiten gaztelaniaz. Hasier Etxeberria

Ordu berean, Ipurua zelaitik ez oso **apartean**, Real Madril peñako bazkideek Jorge Valdano Real Madrileko kirol zuzendaria eta Raul Ronda, Nicolas Martin eta Manuel Cerezo zuzendaritza taldeko kideen bisita jaso zuten. Berria - Kirola

-Hitaz aprobetxatzen ari dituk -saiatzen zen Gabin Luis Angeli begiak irekitzen, inoiz elkarrekin **apartean** gertatzen zirenean. Iñaki Iñurrieta

Ezta Papirengatik ere, gure taldea **apartean** uzteko orduan ferme hartara bidali gintuelako eta ez, beste aldi batzuetan bezala, Parisera. Bernardo Atxaga

Aukera izan zuenean, **apartean** hartu zuen Holohan jauna, eta eskatu zion esan ziezaiola zer zen hura. Irene Aldasoro

---

aparteko[1] **1** *izlag* ohi ez bezalakoa, aparta, berezkoa.

Somervell jaunak **aparteko** begia du horretarako, laburpen honen lehen liburukia jatorrizkoarekin alderatu duen edonor konturatuko zen bezala. Iñaki Mendiguren

Begiratu nieneko batean harri hura zuriegia zela pentsatu nuen, eta bi umeek errazegi mugitzen zutela alde batetik bestera, baina ez nion xehetasunari **aparteko** garrantzirik eman. Bernardo Atxaga

Batak **aparteko** zuhurtasuna zuen, besteak berezibiko pazientzia; hirugarrena xalotasunagatik zen ospetsua eta azkena gorputzez sendo eta barrutik otzan eta baketsua zen. Askoren artean

Egia esan, ez zuen harekin **aparteko** adiskidetasunik, ez berezko antz handirik. Askoren artean

2 (izenondo gisa)

Espiritu berri, **aparteko** batez beterik, otoitz egiten zion ezkutuan Aitari. Askoren artean

Hain presaka, hain gogor eta luze jo zuen atea, ezen anaiak asko harritu baitziren atea jotzeko era **aparteko** hartaz. Askoren artean

Aski dira kristau eta frantziskotar bizitzaz ikuspegi mardula azaltzeko eta, aldi berean, Klararen giza eta espirituzko nortasun **apartekoa** agerian jartzeko. Askoren artean

Frantziskoren irudia ere ez da jadanik giza esperientziatik hurbil dagoen santuarena, haren alderdi miraritsu eta **apartekoa** nabarmentzen baitu. Askoren artean

Hortik Frantziskoren zailtasuna "barne-bakea" aurkitzeko, eta Legendan Anaia Eguzkiaren Kantika-k duen toki **apartekoa**. Askoren artean

Davidek ikara bide zien hutsuneei, eta den-dena kontatu nahi zuen; ahalegin horretan, ordea, hainbat pasarte, nik neronek ere ezagutzen nituenak eta **apartekoak** iruditzen zitzaizkidanak, itota geratzen ziren, ikusezin. Bernardo Atxaga

Toki honetan Ama Birjinaren ohorez eraikitako eliza zegoen, bere apaltasun **apartekoagatik**, bere Semearen ondoren, santu guztien buru izatea merezi izan zuenaren ohorez. Askoren artean

Asteko egunak otoitzerako aukeratzeko orduan, ez zuten zalantza **apartekorik** izan. Pello Zabala

Eusebio, berriz, oso gizon garai eta argal baten moduan gauzatzen zitzaidan, arrazoi **apartekorik** gabe, soilik halakoxea zelako izen bereko nekazari bat, nik Iruainen ezagututakoa. Bernardo Atxaga

Ez da txarra izan, ez horixe, baina ezta **apartekoa** ere, orain gutxi jaiki naizela kontuan izanik. Migel Angel Mintegi

3 (izen gisa)

Dena dela, **apartekoren** bat sortuko balitz, elkarrekin aztertzeko irekiak egongo ginateke. Migel Angel Mintegi

4 ***aparteko ordu*** ohiko lan orduei gehitzen zaizkien ordu ordainduak.

Enpresa txikietan **aparteko orduak** sustatzeko plana beste hiru urtez luzatu du eta 35 orduetako lanaldiaren pilatutako opor egunak diruz kobratzea proposatu. Berria - Ekonomia

Urte hartan Wall Street-eko finantza-etxeak beren takimekanografoak konbentzitzeko ahaleginetan ari ziren -arrakastarik gabe-, **aparteko orduak** ondo ordaintzeko sari bereziak eskainiz, aurrerantzean larunbat goizetan bulegoetara ez joateko talde-erabakia berriro azter zezaten. Iñaki Mendiguren

Aparteko orduak ordainduko dizkizute, ezta? Iñaki Mendiguren

Sindikalismoaren tradizio errotuenean bezala, gorrotagarriak zaizkio **aparteko orduak**. Aingeru Epaltza

Sindikatuek, ahal den heinean, **aparteko orduak** desagertzea eskatu zuten. Berria - Ekonomia

Zintzo izan nahirik **aparteko orduak** egin nitinan, ongiegi egin nonbait, eta begira nola diren gauzak, ze esker ona jaso beharrean. Migel Angel Mintegi

Asteroko 48 orduko lanaldia gehi 12 **aparteko ordu** gehienez. Iñaki Heras

Guardiako txandak **aparteko ordu** bezala ordaintzeko eskatzen dute medikuok. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzaren kanpaina, **aparteko orduen** aurka. Joxerra Garzia

Eta duela gutxi hartu du Frantziako gobernu kontserbadoreak 39 orduko lanaldira itzultzeko erabakia (ez neurria bertan behera utziz, baizik eta langile bakoitzeko urtero 180 **aparteko ordu** sartzea ahalbidetuz). Iñaki Heras

Aldi baterako ezintasunak, **aparteko orduen** murrizketak eta lana uzteagatik eman beharreko hobariek sortu zituzten buruhauste handienak. Berria - Ekonomia

5 ***aparteko ordainsari***

2004. urtean langile horiei banan-bana ezarriko zaie lanpostu mailako osagarriak **aparteko ordainsarietan** duen eraginaren gehikuntza, aplikatu beharreko oinarrizko aurrekontu legediak aurreikusitako zenbatekoaren arabera eta lan kontratuko langileei dagokien kopuru berean. Berria - Ekonomia

Hortaz, alferrik tematu zen Carlos hileta arratsaldez izango zela esanez, ia egun osoa zutela entseatzeko, berak hartuko zuela entsegu bitarteko edariaren, denentzako bazkariaren eta bakoitzarentzako **aparteko ordainsariaren** ardura. Bego Montorio

6 ***aparteko sari***

"Sakrifizioetan berdintasuna» aldarri, Rick Wagoner General Motorseko presidenteak aurtengo soldata erdira jaitsi du, eta ez du iazko ekitaldiagatik **aparteko saririk** jasoko. Berria - Ekonomia

Carlosek berak, grabaketatik bueltan Eduarda andreak egindako lana ikusi zuenean ez zuen laudoriorik aurreztu, eta trajea zoragarri zegoela esan zuen zintzoki, hildakorik zorrotzenak onartzeko moduan, eta hiletetako nahasmena pasatuta **aparteko saria** izango zuela. Bego Montorio

7 ***aparteko zuhaitz*** *(corpusean ez dago; ETCn **34** agerraldi)*

Aparteko zuhaitz izendatu du Eusko Jaurlaritzak, ehunka urte izateaz gain inguruetako historiarekin lotura zuzena du eta. ETC-prentsa

Bigarrenak, berriz, basoak eta ibarrak biltzen ditu, eta haietan aurki daitezkeen **aparteko zuhaitz**, lorategi, zelai eta dunen inguruan jakin beharreko guztia dakar. ETC-prentsa

Aparteko zuhaitz hauek natur monumentu izendapena jasotzen dute Nafarroan, eta izenarekin batera dator zaintza berezia ere. ETC-prentsa

EAEn, Naturaren Kontserbazioko 16/1994 Legeak hiru babes figura ezarri zituen; natur parkeak, biotopo babestuak eta **aparteko zuhaitzak**. ETC-prentsa

Esateko dago, haritzen artean ezagunena, **aparteko zuhaitz** izendatu gabea, Gernikako arbola dela. ETC-prentsa

Natura 2000 sarearen baitan dauden eremuak, **aparteko zuhaitzak**, osasun egoera onean dauden baso eta errekastoak, mendizerrak eta bestelako natura interesezko guneak lotzea gura dute. ETC-prentsa

Horretarako, hiru mailatako NEBak ezarriko ditu: **Aparteko Zuhaitza**, Biotopo Babestua eta Parke Naturala. ETC-zientzia, zuzenbidea

Santutegiko iparraldeko fatxadaren alboan 500 urte baino gehiagoko artea dago, Eusko Jaurlaritzak **aparteko zuhaitz** izendatu zuen. ETC-entziklopedia

Albizturren dago, 1920.en urtean aldatu zuten beste hainbat izeikin batera eta 55 metro altuera zeukan **aparteko zuhaitza** izendatzerakoan, nahiz eta azken neurketan 60 metro pasa dauzka jada. ETC-entziklopedia

8 ***zuhaitz aparteko*** *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Zuhaitz apartekoa dendrologiaren, historiaren, kulturaren edo paisaiaren aldetik nabarmena den zuhaitza da. Hego Euskal Herrian, halako zuhaitzek babes berezia dute legearen aldetik, kalterik gabe iraun dezaten. ETC-entziklopedia

Zuhaitz apartekoak dira, legez babestu beharrekoak: tamainagatik, adinagatik, historiagatik, edertasunagatik eta kokapenagatik. ETC-prentsa

Halere, paradisu gune hauek mantentzekotan edo, zuhaitz aleak babesteko figura legal bat ere badugu, '**Zuhaitz apartekoa**" deritzona, alegia. ETC-prentsa

---

aparteko[2] **1** *izond* aparte dagoena.

Haren zurikeriari entzungor eginez, mahaiko zokorik **apartekoenean** utzi nituen, zikinduko balute bezala. Aingeru Epaltza

2 aparta dena.

Munduan zentro nagusietako bat da hori talentu **apartekoen** esparruan. Berria - Euskal Herria

Ondorioz, ikastetxea toki zaila da askotan talentu **apartekoentzat**. Berria - Euskal Herria

Prestatzerakoan edo azokaren joanean gertatzen diren une **apartekoen** testigantza utzi nahi genuen Horixe du, gainera, lanik behinena, antzararik bidean galdu gabe segitzeko aukera **apartekoena**. Berria - Kultura

---

apartekotasun *iz* apartekoa denaren nolakotasuna.

Berak ere egiten zuen barre eta jolas, baina etxean egon arren, bazuen halako **apartekotasun** bat, urruntasun bat, lideri eta beste mutikoei halako menekotasun bat, eta aldi berean txeratasun bat eragiten ziena. Josu Zabaleta

Honengatik zen ETA bere erroetan iraultzailea: arrazoi partikularren "normaltasun" guztiak hankaz gora bota eta, euskal kausari justizia egin behar zitzaiolako nahitaez,

apartekotasun erabatekoa exijitzen hasi zelako Espainiatik eta Europatik, hain zuzen unibertsaltasunean eta legedi internazionalean finkatutako **apartekotasuna**. Joseba Zulaika

Izan ere, gure artean, euskararen batasuna zalantzan ipini eta bizkaieraren **apartekotasuna** aldarrikatu dutenak ez dira izan zentralista espainiarrak, Valentziako Erkidegoan bezala, oso jende euskaltzalea eta abertzalea baizik. Koldo Zuazo

Monnaie antzokiak eginiko ekoizpenaren kasuan, Brittenen **apartekotasunari** antzokiko arduradunen lan oparoa gehitu zaio, eta emaitza lan ausarta sortzea izan da. Berria - Kultura

Agian, egiteko daukagun lehenengo eginkizun kritiko larria Vitruvioren irudia eta obra historizatzez bukatzea izango da, behingoz haustea bai obra eta irudi horren inguruan aspaldiko mendez geroztik zabaldu den **apartekotasun**-aura eta bai jakintza arkitektonikoaren gordailu mitiko delako ideia, Santiago Iruretagoiena

---

apartetasun *iz* aparte dagoenaren nolakotasuna.

Ondoren, esan nahi zion ezen lehenxeago terrazan zebilenean -honetan egoneza jarri zitzaion, apurtzen ari balitz bezala emaztearen bakardadea, **apartetasuna**, urruntasuna... Anton Garikano

---

apartetxo *adlag adkor* apur bat aparte, aparte xamar.

Jakintza bideetan hain emana zenez gero, Beizama **apartetxo** zegoela eta, Hernaniko parrokian laguntzaile izendatu zuten, eta urte gutxira, 1893an, Zarauzko parrokian bikario izendatu. Pello Zabala

Apartetxo gelditu zen bulgariarren laguntzailea, bizar beltzeko mutila. Pablo Sastre

Gurdi bat geratzen zen oraindik, herrenka baitzetorren, eta **apartetxo**, horregatik, eta haren atzetik gazte talde bat, aldian behin botila bat eskutik eskura pasatuz, handik edan eta heltzen ziotenak. Josu Zabaleta

---

apartexko *adlag adkor* apartetxo.

Emakumerik ederrenak borrokatzen ziren Ceyl karrikako argazkilariaren bitrinaren aurrean, han paratu zuten nire potreta miretsi ahal izateko, guztien artean ederrena atzematen ninduten, eta nik, **apartexko**, poz-pozik, Artaban bezain harro nintzen! Pablo Sastre

---

apartheid 1 *iz* Hego Afrikako zenbait estatutan erabili zen arraza segregazio politika.

2 irud/hed

Ezker abertzalearen aurkako **"apartheidak** " bere horretan jarraitzen duela salatu zuten. Berria - Euskal Herria

Zure politikak ideologia batetik edaten du, eta ideologia horrek eraman zaitu behartsuenentzako laguntza sozialak murriztera, arrazakeria eta xenofobiazko immigrazio politika izatera, euskararen eta euskal kulturaren aurka temati aritzera, mugimendu herritar eta autogestionatuei **apartheid**-a ezartzera. Berria - Euskal Herria

Baina beste alderdiek **apartheid**-a gainditzeko ausardia falta nabarmena erakutsi dute. Berria - Euskal Herria

Herri plataformetako ordezkariek adierazi zutenez, "Madrilek eraikitako **apartheid**-aren horma berrehun herri baino gehiagotatik pitzatzen hasteko benetako aukera dago". Berria - Euskal Herria

'Apartheid'–aren kontrako pintadak agertu dira Bilboko EAJko zinegotzien etxebizitzetan. Berria - Euskal Herria

Gema Gonzalez Txabarri jeltzalearen irudiko, kezkagarriena da erreformak "erregimen berezia" indarrean ezarri nahi duela nazionalitatearen arabera, eta, horrek, finean, **"apartheid** legala" esan nahi duela. Berria - Euskal Herria

EB-IUk Eibarko Udalan duen bozeramaile Elixabete Gomezek ezker abertzaleari eskatu egin zion erasoa gaitzetsi egin dezala "bere buruaren aldeko adierazpen askatasuna eskatzen duen moduan eta bere alderdiaren aurkako **apartheid** ideologikoa kritikatzen duen bezala". Berria - Euskal Herria

Bertan parte hartu zutenen helburua "Euskal Herrian bizi den **apartheid** politikoa" salatzea baino ez zela izan, ezker abertzaleko herri plataformek ezin izan zutelako iragan udal hauteskundeetan parte hartu. Berria - Euskal Herria

Barrenak bertan azaldu zuenez, Alderdien Legea onartu zuten PSOE eta PP dira ezker abertzalearen aurkako **"apartheid** politikoaren arduradun". Berria - Euskal Herria

Joserra Etxebarria eta Eusebio Lasa Bizkaiko AuB kideen ustetan, Lizartzan hartutako erabakiak **"apartheid** politikoa gainditzeko bidea irekitzen du". Berria - Euskal Herria

Lege egitasmo horrek **apartheid** sistema bultzatzen du, eta egin, gay eta lesbianei ezkontzarako eta adopziorako bidea ixteko egin dute. Berria - Euskal Herria

"EBBk txeke zuria eman dio, berriro ere, Espainiako Gobernuari, **apartheid** egoera kudeatzen jarraitzeko", esan zuen. Berria - Euskal Herria

Jose Luis Bilbaori **"apartheid** egoeraren laguntzaile zuzena" izatea egotzi diote. Berria - Euskal Herria

"Gogorarazi nahi diogu euskal gizarteari eta Europa osoari euskal herritarrak **apartheid** egoeran gaudela" adierazi zuen atzo Joserra Etxebarria AuBren ordezkariak, Donostian egin zuten agerraldian. Berria - Euskal Herria

---

apartsu 1 *izond* aparra duena, aparrez betea. ik **apardun**.

Horrela, geldirik eta ur epel **apartsuz** beteriko baineran etzanda, denbora luzean egon zen. Joxemari Iturralde

Begiak erdi bustita zeuzkan, baina bare: barrengo ekaitzaren eta niri erakutsi nahi zidanaren lasaitasunaren arteko ispilu bi ziren: ezin adierazkorragoak, ur-jauzi **apartsuen** ondorengo ubera bi. Anjel Lertxundi

Esne jetzi berri **apartsuaren** usaina hedatzen da barren epeletatik. Pello Lizarralde

Edari **apartsua** gorputz zurixkan behera labaindu zitzaion. Lutxo Egia

Beroak zerbait freskoa eskatzen dio: garagardo **apartsu** bat. Paddy Rekalde

Sagardo huts tanta bat, **apartsua** eta gozoa, eta ardo gorri hordigarria, eta plater bakoitzaren ondoren zurrut bat egiten zitzaion sagar-pattar zahar gozoari. Josu Zabaleta

Mutilak ardo txuri gehiago isuri dio edalontzian, ardo **apartsua**, txinpartaduna, berari gustatzen zaiona. Alberto Barandiaren

Izarrez osaturiko gangaren azpiko mendi elurtuetatik edo ozeano **apartsuek** bainaturiko zilarrezko hondartzetatik zuzenean iritsi berria nonbait. Agustin Otsoa

Sutan dagoen oihan baten erdian, Ruben urjauzi **apartsu** bati begira dago. Patxi Zubizarreta

Begiak txuri-urdinak dituzu: bi zeru urdin itsaso txuri **apartsuan**. Joan Mari Irigoien

Tarteka, San Telmo hondartza-bazter hura hustu bezala egiten zen; eta urik gabe utzitako eskualdea, uholde **apartsu** harrigarrian itorik, berriro betetzen zen osoki ur hondartsuz. Txillardegi

Uhin **apartsuetako** jainkosa Afroditaren gezi-zorrokoa. Oskar Arana

Goserik daudenean, itsas hondotik irteten zaie kantua; pozik daudenean, berriz, olatu gain **apartsuetatik**. Anjel Lertxundi

Arraunek arrasto **apartsu** biziak sortzen dituzte itsaso gainean. Anjel Lertxundi

Gero eta altura handiagora igotzen jarraitu genuen urkila beldurgarriak eginez bihurrikatzen zen bidean gora, estratu-zerrendaz osatutako haitzek egindako labar izugarriak hantxe genituela buruz gain, zintzur **apartsuak** barren-barrenean, eta pinudi, goroldio eta iratze mota zoragarriak alboetan. Xabier Olarra

2 irud/hed

Eguberriei buruzko gogoeta gozoetan erabat murgilduta zegoela, Mr. Zucher ikusi zuen sepia-koloreko laino **apartsu** batean, ahate-ibilkeraz, ate birakarietatik irteten. Lopez de Arana

Nire barruan sekulako poz **apartsu** bat jauzika sentitzen nuelako bururatu zait halako gauza ezohiko bat. Anjel Lertxundi

Itsas-uhinen gisako itxura bat harturik, ortzimuga urrunaren eta nire artean; notek laster galtzen zuten, ordea, beren gora-nahia, eta akiturik errenditzen ziren nire bihotz-barneko hondartzagune txikietan, eta bertako hareak ere berehala xurgatzen zuen gora-nahi haren azken hondarra, oihartzun **apartsu** iraungaitzaren itxuran. Anjel Lertxundi

Itsas uhinen kalpar **apartsua** Baleamendi deitzen duten harkaitz tzarraren kontra. Anjel Lertxundi

Buelta erdia egin du bizkarra emanez, eta ekarria digun harrokeriak berak eraman du, ez hain **apartsu** baina. Koldo Izagirre

Tximuen Birus **Apartsua** deiturikoa animalietatik gizakietara pasatu dela esan zuen atzo Natham Wolfe AEBetako zientzialariak. Berria - Gaiak

3 (adizlagun gisa)

Oinpean, olatuak haitzen kontra, **apartsu** eta etengabe. Anjel Lertxundi

Edari gasdun baten ontzia zabaltzerakoan sortzen den borbor jostaria bezain **apartsu**. Anjel Lertxundi

Joana zen ordurako ekaitzaren lehen erauntsia, edo beharbada ekaitzaren aurretik gindoazelako ez genuen hainbeste sentitu; nolanahi ere, lau eta **apartsu** eduki zuen haizeak hasieran itsasoa, baina gero mendi eskergetan hasi zen altxatzen. Koro Navarro

4 ***ardo apartsu*** ik **ardo apardun**.

Mutilak ardo txuri gehiago isuri dio edalontzian, **ardo apartsua**, txinpartaduna, berari gustatzen zaiona. Alberto Barandiaren

Janari-dendan bizkotxo-paketeak hartu eta **ardo apartsuan** bustitzen zituzten, eta barre-sortak egiten zituzten, mahai gainera makurturik algaraka. Joseba Urteaga

Bere beso esmeralda zeharrargiz zamatuez inguratzen zituen **ardo apartsuz** beteriko kraterak. Juan Garzia

---

apartu, apar(tu), apartzen **1** da *ad* apar bihurtu; aparrez bete.

Gainera batzuetan geruza hori **apartu** egiten da (bere baitan gas edo lurrunen bat harrapatua gelditzen baita) eta aparrak oraindik erre gabeko materiala sugarretatik babesten du. Berria - Gaiak

Inguru hauetan, behin baino gehiagotan erreparatu diet behorrei, ezpainak ondo zabaldu eta **apartuta**, nola hortzak eransten dizkieten ote-punta arantzadun horiei: mutur-mintzak apartatzeko arte aparta daukate, ondo ikasia! Pello Zabala

2 irud/hed

Barre **apartu** bat egin zuen fiskalak. Koldo Izagirre

---

apasionante *(ETCn **43** agerraldi, horietatik **23** azken sei urteetan) izond* pasioa eragin dezakeena.

Halakoak eta are **apasionanteagoak**. Unai Elorriaga

Apasionatua eta **apasionantea** dugu hau, adin batetik aurrera, munduari beha eta harekin engaiatua jardun ondoren soilik idatz daitekeenetarikoa. Berria - Kultura

Eta laranjak eta tomateak eta beste ortuari **apasionante** batzuk. Unai Elorriaga

---

apasionatu, apasiona(tu), apasionatzen **1** da/du *ad* pasioa sortu (norbaitengan).

Horretaz gain, Patxi Altuna euskaltzale zen neurri berean zen irakatsi zale, eta ahozko hizkuntza biziaren espresibitateak adina **apasionatzen** zuten euskal testu zaharren altxorrek. Berria - Kultura

Francis haserre eta **apasionatuta** mintzo da. Harkaitz Cano

2 (era burutua izenondo gisa)

Eta atso hordiaz, lo zerraldo dagoen lagunaz, emakume **apasionatuez**? Anjel Lertxundi

Horrek bi abantaila zituen; alde batetik, maitale **apasionatuentzat** oso ona zen, eta, bestetik, elkarrekin liluratuta egonez gero, elkarrekin jarraituko zuten, eta umeek behar zuten zainketa eta babesa izango zuten. Luis Elberdin

-, bere katramilak ordu batzuez zeharo ahantzarazten zizkiona eta abere **apasionatu** edo printzesa maitale sentitzea posible egiten ziona. Xabier Mendiguren Elizegi

Musu **apasionatuak**, estutzeak, jira eta bueltak. Luis Elberdin

Soil-soilik interesatzen zaizkit musu garbiak, puruak, **apasionatuak**, elkarren musu direnak elkarren musuan, betiko. Karlos Linazasoro

Monikek badaki pasioagatik dela Mikelen haserrea, eta berea ere bai, pasio horri erantzun **apasionatu** bat emateagatik. Eider Rodriguez

Orain hurrengoan, Aurkenek oso modu naturalean eta sanoan esan zidan alua urtu egiten zaiola Xabik klitoria miazkatzen dionean; horrek orgasmo **apasionatu** eta sutsua eragiten diola. Luis Elberdin

Desioa, sexua, maitasuna eta grina oso bizipen indartsuak dira, su kiskalgarri baten antzekoak, eta esperientzia paregabe, berezi eta **apasionatura** eramaten gaituzte. Luis Elberdin

Maitaleek beren burua bestearen esku uzten dute, modu **apasionatuan**. Luis Elberdin

---

apasta *iz* arrainak erakartzeko uretara botatzen den janaria.

Aski dituk kanabera bat eta txiki-txiki egindako itsaski-buruen **apasta** on bat. Anjel Lertxundi

---

apatia *iz* zerbaiti ekiteko oldar edo bulkadarik eza.

Bi sintoma mota ditu: positiboak haluzinazioak, katatonia, ezinegona eta negatiboak maitasun sentimendu eza, **apatia**, gizartetik urruntzeko joera, plazera sentitu ezina eta pentsamendu zein adierazpen eskasia. Berria - Gaiak

Lehenik eta behin, ordea, "iritzi publikoa inarrosi" behar ei zen eta **"apatia**, ezaxola, baita zalantza ere" uxatu. Urtzi Urrutikoetxea

Liburuetan, eta bizitzan oro har, ez baitago **apatia**, axolagabekeria eta geldotasuna bezain gauza goibelik: itsas belarrekin gertatzen den legez: *in tranquilo mors, in fluctu vita*. Iñaki Heras

Urrats bat egin orduko, izerditan blai zinen, eta garagardoz berdindu behar berehala izerdi galdua; ez zegoen hura jasaterik, hamaka batean oinutsik, zigarreta erreaz eta zirkinik egin gabe etzanda izan ezik: **apatia** zen irauteko modu posible bakarra. Joxe Austin Arrieta

Puntu honetaz ez dut besterik esango; eta, amaren eta gainerako ahaideen **apatia** hori dela-eta eskura ditugun frogek erabat ezezten baitute L'Etoilek dioena -**apatia** hori ez baitator bat gorpua lurrin dendako neskarena zelako ustearekin-, nortasunaren auzia erabat finkatua balego bezala jardungo dugu hemendik aurrera. Koro Navarro

Ezer gertatu ez balitz bezala jarraitzea nartzisismoaren erreakzioa da: **apatia** horrek, gure boterearen fantasiaz aparte, eguneroko pertsona konkretuak ez ditugula ezagutzen adierazten du. Joseba Zulaika

Batzorde berriak Europako Legebiltzarrerako azken hauteskundeetako parte-hartze urriak islatu zuen **"apatia**" gainditu nahi du, Europako erakundeekiko "konfiantza" emanez. Berria - Mundua

Mintzagaietarik bat bortizki eztabaidatua izan zen, hain bortizki non berak gobernu gaientzat zuen betiko **apatia** galdurik, kasu eman baitzuen. Elena Touyarou

Errebeldia bere hutsean ez da aski gizarteak ezartzen dituen ustekabekoak gainditzeko, ezta garaiko **apatia** erabat arrunta hausteko ere. Josu Zabaleta

Joera hori areagotu egin zen seme zaharrena hil zitzaionean eta Felix gaztearen gogo-eza eta **apatia** nabariagoak egin zirenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Apatia orokorra, gorputzaren pixkanako hondamena eta katalepsiaren ezaugarri batzuk zituzten alditxar sarri baina iragankorrak ziren diagnosi bitxiaren osagaiak. Koro

Navarro

---

apatiko 1 *izond* pertsonez mintzatuz apatia duena.

Don Juan mantxatar **apatiko**, triste bat zen, oso serioa, oso neurritsua, oso zezenzalea. Josu Zabaleta

Legeak errespetatuz bizi dena **apatikoa** da, eta bestea, heroia. Itxaro Borda

Populazio **apatiko** horretan, urte batzuk lehenago abertzale bezala plazaratzen zirenak konta ditzakegu. Itxaro Borda

Beinat izugarriko egoera **apatikoan** behera zihoan, biziarekiko interes jada ahula erabat itotzen bailihoakion. Itxaro Borda

Zer da euskaldunak, abertzalegoak preseski, bere populazio **apatikoari** barkatzen ez diona? Itxaro Borda

Biharamunean, Sanchez Andresengana joan zen, inoiz baino **apatikoago** eta tristeago. Josu Zabaleta

Gaixo bakan batzuk, gaixo ia gobernaezinak, bizitzan poztasun gutxi izateko egoeran zeudenak, otzan bihurtu ziren, guztiz **apatikoak** ez esateagatik. Irene Aldasoro

Larru arraseko ihardukiak nola ekidin asmatzen hasi nintzen: erabat atipikoa eta **apatikoa**, beti sinpatikoa egonez noski, sozietatean agertzearren zergatik ez nuen nik ere temesta hartuko? Itxaro Borda

2 (adizlagun gisa)

Guztiz **apatiko** zebilenez, orduak eta orduak eman zitzakeen ezer egin gabe, hiri gaineko zeru grisaren kontenplazioan galduta. Patxi Iturritegi

---

apatito *iz* mineral fosfatodunen talde bateko kidea.

Geologoek ondo ezagutzen dituzte **apatito**-mineralak. Irene Aldasoro

---

apatrida 1 *izond* aberrigabea.

Bizitzan lehen aldiz inoren kontrolik gabe nengoen, **apatrida**, gelarik ere ez daukan alderraia, eta edozer egiteko gauza sentitzen nintzen. Pako Aristi

2 irud/hed

Gustatu egiten zaizkit zerbitzugune frantses hauek, munduko hornituenak, ez da gustu onekoa aitortzea, baina gustatu egiten zaizkit, ez dakit zergatik, jende diferente asko dagoelako agian, edo mundutik at diruditen lekuak direlako beharbada, lur jabegabea, hamaika hizkuntza entzuten dira, toki **apatridak**, lur frankoa bi zentzuetan, Julio Cortazarri ere gustatzen zitzaizkion. Mikel Hernandez Abaitua

---

apats *izond*

"Arrosa zuri-gorri idien **apatsek** zapaldua bezalakoak" direla andere errukarri horiek. Agurtzane Juanena

Reyno de Navarra: Piperra eta banabarra, aurretik **apatsa** eta atzetik uzkarra. Berria - Kultura

---

apatx[1] *iz* apoa, adarkizko azal lodia.

Zaldiek **apatx** bakoitzean igel bana dute... naturaren hornizio burutsua, hesi-lasterketetan distiratzeko aukera ematen diena. Xabier Olarra

Piztia baten **apatx** erdibituak utzitako oinatzaren atzetik bidalitako txakur aldrak beraganaino garamatza, eta ahate zuriak, Erromulotarren gotorlekuaren zaintzaileak, giza usaina urrundik somatzen du. Xabier Amuriza

Zarata asko entzuten ziren garai batean: umeak hurbiltzen, emakumeak, astoen **apatx**-hotsak. Xabier Olarra

Leihotik begira egon da hiru lau minutuz, gero buelta eman eta astiro joan da, atea kontuz itxita, Pauso Galduen Galerian idiaren **apatx** hotsa eginez. Joseba Sarrionandia

Apatx-hotsa entzun zuen atzean, trostan, eta zerbaitek irudi haren gainera salto egin eta eraso egin zion. Iñaki Mendiguren

Iluntasunetik beste zaldi batzuen irrintziek erantzun zioten, eta **apatx**-zarata gorrak ondoren. Agustin Otsoa

Azkenaldian asko ugaldu zirela inguruko mendietan, azaldu zion anaiari; ez zela herritik gertu ikusten zituzten lehenengo aldia, **apatx** markaz beteta egoten zirela inguruko bideak. Imanol Zurutuza

Andrea aurrera makurtu zen, masa beltz batek bidea eragozten zuela ikusia zuen eskuinaldean, ia zaldiaren **apatxen** pean. Karlos Zabala

Ozen entzuten ziren tranbien triki-traka, zaldien **apatxen** hotsa eta, urrunago, automobil binbilikarien turutak. Jose Morales

Zaldizko batentzako traba bihurtu, zela gainean egoteari eutsi behintzat, eta **apatxen** azpian zapalduta ez hiltzen ahalegindu! Agustin Otsoa

Aitaren oihuak entzun genituen, eta zaldiak ura gogor astintzen zuen **apatxez**. Juan Kruz Igerabide

Zapalduak eta erreak Apokalipsiko zalditeria beren suzko **apatxekin** bertatik pasatu izan balitz bezala. Jon Alonso

2 ***gamelu apatx*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Cameltoe edo camel toe ("**gamelu apatx**" euskaraz) jantzi oso estu batek aluko ezpainak nabarmentzen duen ingeradari deritzo ingelesezko sexu-jargoian. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apatx hotsa** (4)
> **bitan banaturiko apatxak** (4)
> **apatxen hotsa** (3)
> **bitan banaturiko apatxik** (3)

---

apatx[2] umeak esertzean edo esertzeko esaten den hitza.-

Apatx nire ondoan; itxi itzazu begiak eta lasaitu giharrak, lotarakoan bezala. Anjel Lertxundi

Eseri, nire poxpolina, **apatx** hemen! Antton Olano

Hatzaren atzeko aldeaz jo zuen Mollyk eta, **apatx**!, eseri egin zitzaion kutxan, bibote dardaratiei gure alderantz urduri eraginez. Mirentxu Larrañaga

2 ***apatx egin*** *adkor* eseri.

-Zer egin beharko nuke... zabortegi honetan **apatx egin** eta potro-jorran aritu gau osoan? -galdera erretorikoa botatzen zuen tupustean. Mirentxu Larrañaga

---

apatxe *iz* Texas, Arizona eta Mexiko Berriko lurraldeetan bizi izan zen indiar herri bateko kidea.

Batzuek ez dute egiten, baina siouxak dira, **apatxeak**. Lander Garro

Sekulako zaratak ateratzen ziren handik, eta pailazo lokatu bat Tomahawk edo Trumoi Burrunba izeneko piztia-bezatzaile **apatxe** beldurgarria lanean ikustera sartzeko deika

ari zen oholtza gainetik. Josu Zabaleta

Basatia zen, **apatxe** baten wigwamean edo andamandar baten txabolan bizi zitekeena. Karlos Zabala

---

apatz[1] *izond* biguna.

Gainera, gauzak solidoak direla eman arren, hemendik ikusi ahalko duzu gorputz **apatza** daukatela. Xabier Amuriza

Ipurmasail **apatzeko** emakumea. Anjel Lertxundi

---

apatz[2] *iz* abatza.

Badakit, **apatz** handitik irazki batean hedatu oihal mehar baten bidez, esnea ferblankazko pertzera iragaten zela. Itxaro Borda

---

apea *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* moztutako zuhaitzen enbor zatiak.

An ari giñala Asturiasko minetatik etorri zan **apeak** egiteko eskea. ETC-literatura, saiakera

Teilatu lau hauek egiteko inguruko materialak erabil ziren. Harea, burdinazko barillak, porlana, kofratuak egiteko oholak eta **apeak**, iltzeak, eta ura eraikin gainera eramateko hodiak eta punpak ere euskal industriak ekoizten zituen. ETC-entziklopedia

---

apeadero *iz* trenen maila apaleko geralekua.

Trenez Donostiarako bidea egitean eskubitara ikus daiteke, trenbide ondoan Iñurritzako **apeaderoa** utzi eta trena Orioko tunelean sartu aurretik, hantxe bertan dago. Xabier Etxabe

Auzoko **apeaderora** joaten ginen Manu, Demi eta hirurok, eta bertan orduak eta orduak pasatzen genituen, trenei begira, edo hara eta hona, firin-faran". Jokin Muñoz

Behin, esan zuen, **apeaderoan**, trena galtzen ari nintzen eta... Pablo Sastre

---

apel *iz ipar* deia, deialdia.

Baina, **apela** egineta, libro utzi dituzte behingotz. Herria

---

apelaezin *izond* ezin apelatuzkoa.

Auzitegi Gorenaren erabakia **apelaezina** da eta, beraz, espetxera bueltatu beharko da berriro, soilik zortzi egunez aske egon ondoren. Berria - Mundua

Bestetik, deialdian jasotzen den moduan, epaimahaiaren erabakia "isilpekoa, ezeztaezina, **apelaezina** eta behin betikoa" bada, udalak legeria hautsiko lukeelako. Berria - Euskal Herria

Azken hitza du beti; haren erabakiak **apelaezinak** dira. Xabier Olarra

Legeak, ez zirela aitzakia hutsalak baino, eta emakume batengana hurbiltzeko nire gaitasunik eza zigor-epai **apelaezina** zela, zeinak, heriotzaraino bizilagun, ondamuz eta desira abstraktuz pozoituriko bizitza antzu eta xedegabe batera hertsatuko baininduen. Juan Garzia

Bere epaiak **apelaezinak** ziren. Fernando Rey

Bostak nahi genituen hirurok besoetako, bostak iruditzen zitzaizkigun zuzenak eta **apelaezinak**. Karlos Linazasoro

---

apelatibo *izond*

Arabiarrek 'bat-bateko izena' edo 'izen inprobisatua' [...] esaten diote, berez **apelatibo** edo aditz batetik eratorria izan barik, hasiera-hasieratik pertsona baten izen berezia izan denari. Xabier Kintana

---

apelatu, apela(tu), apelatzen du *ad* goragoko tribunal batera jo, bidegabetzat hartzen den epai bat berrikus dezan.

Arratibelek epailearen erabakia salatu zuen eta **apelatuko** dutela jakinarazi. Berria - Euskal Herria

"Epaitegitik **apelatu** gabe alde eginez gero", dio Beaumanoirrek [...], "galdu egiten da apelazioa, eta ontzat ematen da epaia". Iñaki Iñurrieta

Lege horren azkenak hasiera desegiten du; eta hain ondo desegin ere, non, handik hara, hogeita hamar urte igaro ondoren ere **apelatu** baitzen. Iñaki Iñurrieta

Apelatu [...] Lege kontuetan, dadoak godaletean sartu, berriro botatzeko. Xabier Olarra

Jaunaren kontra epaiketa faltsuagatik **apelatzea**, epaiketa faltsuki eta gaiztoz egina zela esatea zen; eta halako hitzak jaunaren kontra esatea leialtasunaren kontra joatea modukoa zen. Iñaki Iñurrieta

Apelatzen zuenak epaia okerra zela frogatzen ez bazuen, hirurogei liberako isuna ordaintzen zion jaunari. Iñaki Iñurrieta

Autore batzuek diotenak, hots, kondearen kontra erregeren mandatariaren -alegia, *missus dominicus* delakoaren- aurrean **apelatzen** zela, ez du funtsik. Iñaki Iñurrieta

---

apelatzaile *iz* apelatzen duen pertsona.

Ondorengotza, iz. Autore ospetsu baten garaikideen epaia hankazgoratzen duen apelazio auzitegia, **apelatzailea** bere lehiakide ezezaguna delarik. Xabier Olarra

Karlos VII.ak [...] dio jakin duela alderdiek juizioa izatetik hiru, lau eta sei hilabetera apelatzen dutela, erresumako ohituraren kontra, azturen arabera gobernatutako herrialdean; berehala apelatzea agintzen du, salbu eta prokuradorearen iruzurra edo atzipea bada [...], edota **apelatzailea** aldatzeko arrazoi handi eta nabarmenen bat bada. Iñaki Iñurrieta

Feudoko pare edo gizon batek epaiketari eusten ziola adierazten zuenean [...], epaileak borroka-bahiak emateko agintzen zuen, eta gainera **apelatzaileagandik** bere apelazioari eutsiko ziolako hitza jasotzen zuen. Iñaki Iñurrieta

---

apelazio 1 *iz* maila goragoko tribunal batera jotzea, bidegabetzat hartzen den epai bat ezezta edo alda dezan eskatuz.

Apelazioa, nazio hartan, armaz borrokatzeko erronka egitea zen, ez lumazko auzi horretara gonbidatzea, eta borrokak odolez bukatu behar zuen; lumazko auzia gerora ezagutu zen. Iñaki Iñurrieta

Enpresa informatikoak jarritako **apelazioak**, ordea, hiru hilabete atzeratuko du epaiketa. Berria - Gaiak

Feudoko gizonei **apelazioa** jartze hau, epai faltsua egin zutela-eta, jaunari berari ez egiteko bide bat zen. Iñaki Iñurrieta

- **Apelazioa** aztertu dela jadanik esan nahi du horrek? -eten zion Ronek, aurrera eginez. Iñaki Mendiguren

Zigor afliktiboa, merezi zuten kasuetan, leundu egin zen, bailiak bi gizon letratu hartzeko zuen betebeharraren bidez, eta azkenik, **apelazioak** egiteko erraztasun handiari esker ezereztu zen. Iñaki Iñurrieta

Ez diot epai faltsuagatiko dei guztiak borroka bidez erabakitzen zirenik; **apelazio** harekin beste guztiekin bezala gertatzen zen. Iñaki Iñurrieta

Zuzenbidezko akatsagatiko **apelazioa**, jaun baten epaitegian alderdiei justizia egitea atzeratzen, saihesten edo ukatzen zenean egiten zen. Iñaki Iñurrieta

"Epaitegitik apelatu gabe alde eginez gero", dio Beaumanoirrek [...] "galdu egiten da **apelazioa**, eta ontzat ematen da epaia". Iñaki Iñurrieta

Lehia judizialen ohitura desagertzen eta **apelazio** berrien usadioa agertzen hasi zenean, pentsatu zuten ez zela arrazoizkoa jareginek bide bat izatea beren jaunen epaitegiko injustiziaren kontra, eta bilauek ez izatea, eta parlamentuak jareginenak bezala hartu zituen hauen **apelazioak**. Iñaki Iñurrieta

Ez zela burutazio txarra izango arimarekikoak egitea, **apelazioak** huts egiten bazuen, badakizu, aulki elektrikoa hantxe zegoen. Javi Cillero

Horregatik dio San Luisek, bere Establezimenduak obran [...], **apelazioak** saldukeria eta gaiztakeria dauzkala. Iñaki Iñurrieta

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ginekologoak, orduan, Frantziako Auzitegi Gorenera jo eta umekiak gizakiak ez direla arrazoitu zuen, eta hark bertan behera utzi zuen Lyongo **Apelazio** Auzitegiak jarritako zigorra. Berria - Gaiak

Alabamako **Apelazio** Auzitegiko hiru epaileen ebazpenak hauxe dio: "Konstituzioak ez du sexu bizitzaren intimitaterako eskubidea gordetzen". Berria - Mundua

Duela hilabete, ordea, Erresuma Batuko **Apelazio** Epaitegiak errugabea zela erabaki zuen haren familian haurren bat-bateko heriotza eragiten duten geneak izan zitezkeela eta. Berria - Gaiak

Orain arte, ikerketa ez da izan ez berehala eta ez sakon eginikoa, eta laster da hastekoa baina zehaztu gabe dago noiz ahozko auzi saioa, prozesatzeko autoaren kontrako **apelazio** helegiteen inguruan. Berria - Harian

-Eta gainera, hona etorriko dira **apelazio**-saioa egitera -esan zuen Harryk, artean ere eskutitza irakurriz-. Iñaki Mendiguren

Zuzenbide-akatsagatiko **apelazio**-kasua zenean, goragoko jaunaren aurrera deitutako alderdiak bere jauna eramaten zuen berekin, akatsa frogatzen ez bazen, hark berriz ere bere epaitegia berreskura zezan. Iñaki Iñurrieta

Epaimahaiak ezereztu egiten ditu **apelazioa** eta **apelazio**-gaia. Iñaki Iñurrieta

Ezin konta ahala jaurerri eratu zirenean, basailutza-gradu desberdinak ezarri zirenean, zenbait basailuk bere epaitegia edukitzeko axolarik ezak sorrarazi zituen **apelazio**-mota horiek. Iñaki Iñurrieta

3 irud/hed

Datu objektiboa da, eta ez du balio elkarrizketari **apelaziorik** egitea, baizik eta horretarako borondatea izatea. Berria - Ekonomia

4 ***apelazio errekurtso*** *(corpusean ez dago; ETCn **93** agerraldi)*

Gerora, Arabako Auzitegian **apelazio errekurtsoa** jarri zuten, eta orain atzera bota du auzitegiak. ETC-prentsa

Auto horren kontra Pejenautek hiru egun izango ditu erreforma helegitea aurkezteko, eta bost egun **apelazio errekurtsoa** jartzeko. ETC-prentsa

Hiru eguneko epea du erreforma helegitea jartzeko, eta bost egunekoa Nafarroako Auzitegi Nagusian **apelazio errekurtsoa** jartzeko. ETC-prentsa

2004ko urrian bertan **apelazio** errekurtsoa jarri genuen. ETC-prentsa

Eta gure harridurarako, aurkeztu genuen **apelazio-errekurtsoa** onartu zen, eta ontzat eman zituen gure eskaerak: horien artean, erregu-eskaera berri bat egitea Frantziako agintariei, bigarren gune horretan ere indusketa egin zedin. ETC-prentsa

Erabaki horren kontra, aldiz, berrezarpen- eta **apelazio-errekurtsoak** jar daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Apelazio-errekurtsoa prozedura eteten duten epaien eta autoen kontra jar daiteke, baita betearazpena eteten duten autoen kontra ere, eta neurri kautelarrak ezartzen dituzten autoen kontra. ETC-zientzia, zuzenbidea

Epaile edo auzitegiak eskumenik ez duela adierazten badu, alderdiek eta fiskaltzak **apelazio-errekurtsoa** jarri ahal izango dute goragoko jurisdikzioorganoaren aurrean; errekurtso hori ebazteari lehentasuna emango zaio, eta ezin jarriko da beste errekurtsorik ebazpenaren kontra. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, ez da **apelazio errekurtsorik** jartzeko aukerarik aurreikusten... ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apelazio auzitegiak** (10); **apelazio batzordeak** (15); **apelazio batzordean** (3); **apelazio batzordearen** (3); **apelazio batzordeari** (3); **apelazio batzordera** (3); **apelazio ganberak** (4); **apelazio helegitea** (6); **belgikako apelazio** (4); **du apelazio** (3)

---

apelidu ik **apellidu**.

---

apellido ik **apellidu**.

---

apellidu *(orobat **apellido** eta **apelidu**) iz* abizena.

Olaizola zun hark **apellidua**; hementxe bertan zun garajia. Xabier Etxabe

Lander ei zeretxok; baia **apellidua** etxakixat. Txillardegi

Giulio zinan benetako izena, eta ez zekinat zer **apellidu**. Xabier Mendiguren Elizegi

Apellidua Goñi du? Anjel Lertxundi

Nahaste eder batean bizi ziren orduan, batez ere, Trentoko Kontzilioak familiaren segimendua, **apellidoak** eta beste diziplinatu zituen arte. Patziku Perurena

Zure lepoa arriskuan da, ez dago esan beharrik... nik Cortés-etik nola daukadan **apelidua** bakarrik. Andoni Egaña

---

apen *iz* mendekua.

Apenazko begirada bat, koket-koket joan ziren haiek ere gorantza. Pablo Sastre

---

apenas **1** *adlag* zerbait dagoelako edo gertatu delako zalantza adierazteko hitza, esanahiaren aldetik “ez dirudi, ia ez”-en kidea.

Mundua ez zen **apenas** deus ere aurreratu pilula edo DIU bezalako metodoak asmatu aurretik. Karlos Zabala

Oilalur sakona maite du Perurenak, eta ez die batere aiherrik izaten giza-arrastorik **apenas** duten eremuei, hots, oxigenoan ez eze toponimian ere eskas diren altura bakartiei. Patziku Perurena

Sentitu, lehen ere bakarrik sentitzen nintzen, Herminio nire ondoan zegoen arren, nirekin bizi bazen ere, haren presentzia ez nuen **apenas** igartzen. Jasone Osoro

Egoera berezia ekarri zuen horrek, ia hilabete eta erdi iraun zuena: Aizkorritik Murumendira eta Murumenditik Erniora, Oria eta Urola ibai arroen lurrak bereizten dituen lerroak banatzen zituen gudako talde biak ere, baina lerro hura ez zen fronte bihurtu, ia ez zen lubakirik egin eta **apenas** tirorik bota: zain zeuden denak, zer gertatuko. Xabier Mendiguren Elizegi

Hemen barruan argia da bazterren jabe, eta sozialismo errealaren funtzionaltasun honek tropikoarekin dukeen lotura zein den ahula **apenas** nabaritzen da. Edorta Jimenez

Robertok zaplada galanta eman zion punching ball-ari, baina hain gotor eta betea behar zuen egon, zakua **apenas** mugitu baitzen. Harkaitz Cano

Aurpegi ezezagun bat ikusten nuen, **apenas** aurpegi bat. Monika Etxebarria

Hurrengo goizean, are gehiago errukitu zen babak **apenas** jan zituela ohartu zenean. Patxi Zubizarreta

Zorigaitzez, erranen du oraino Azurmendik, Euskal historiarik ez genuen **apenas** ezagutzen. Piarres Xarriton

Apenas egin dezakeela hitzik ganoraz. Hasier Etxeberria

Apenas ulertzen da zerbait, eta moderatzaileak isiltasun pixka bat eskatu die bi aldeei. Eider Rodriguez

Apenas bereizi zezakeen batak bestearen silueta, baina eskutik helduta zihoazenez, ez zuten galtzeko arriskurik. Aritz Gorrotxategi

Horrelakoetan, galdu samarrik aurkituko da, **apenas** inork esango baitio deus zer eta nola egin dezakeenari buruz. Andoni Egaña

Berandu da eta **apenas** dabil jenderik: lo egiteko bazter erosoren baten bila dabilen eskekoa; azkeneko trena hartzera doazen bidaiari bakan batzuk. Anjel Lertxundi

Jotzen duen lekuan ere, ez du zauri larririk eragiten: azkura moduko zer bat, jo-muga bete-betean jotakoan ere **apenas** dardar doi bat eragitera hel daitekeena. Joxerra Garzia

Kanten ondoren kopernikar iraultza honetara jo gabe filosofatzea XXø mende honen bukaeran ere **apenas** da egingarria edo ezinezkoa da erabat. Ibon Uribarri

Harrigarria da, ordea, zein erraz ezarri duen bere nagusitasuna, oihaneko piztiek **apenas** karrankarik egin gabe. Txema Ramirez de la Piscina

Eta barne-ahots hori belarri guztietara heltzen da, isilean, **apenas** entzuteko moduan. Karlos Linazasoro

Itxura guztien arabera, bertsoak jartzen zituztenek bat-batean ere jarduten zuten, baina, esan bezala, bat-batean sortutako bertsorik **apenas** iritsi da guregana, eta nekez egin liteke ganorazko azterketarik garai hartako bat-bateko bertsogintzaz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ideiak lotu ezinean, zeure burua sosegatzen saiatu zara lo hartu ahal izateko, baina filmetako irudiak baliatzen ohituta zaude horretarako, eta azken aldian ez zara zinemara **apenas** joan. Rafa Egiguren

Euskararik **apenas** hitz egiten zen atzerriko gure hiri euskalduna zen. Joseba Zulaika

Koadroa bera ez; izan ere, koadroa ez zen **apenas** ikusten. Unai Elorriaga

Zahar jendea, euskaraz **apenas** dakiena, zintzo egon da frontoiko eserlekuetan. Pako Aristi

Emakumeak pixa egiten duenean **apenas** ikusten eta ukitzen duen bere sexua. Luis Elberdin

Baina ez; berak tranbia-gidari izan nahi zuela, "neskak ikusteko-eta", unibertsitatean ez zegoela **apenas** neskarik... Unai Elorriaga

Zeren, arimaren ahalmenak iraganaren gomuta erabat jausteraino aldatu badira, **apenas** hori, neuk uste, heriotzatik urrun dabilen; aitortu beharra dago, beraz, lehen zen arima hil zela eta orain dena oraintxe sortua izan dela. Xabier Amuriza

Beste galdera mordoxka bat nahikoa izan nuen garbi ikusteko **apenas** zuela 1970etik askoz honantzagoko gertaeren oroimenik eta, dudarik gabe, inola ere ez haien oroitzapen koherente eta kronologikorik. Xabier Olarra

Ez daukat espainiar dirurik **apenas**. Edorta Jimenez

Eta orduan, Pippinen begi harrituen aurrean, harresien kolorea gris espektraletik zurira aldatu zen, egunsentiak **apenas** gorritutako zurira. Agustin Otsoa

Anderearenean, berriz, nabari zen, ni ez nintzen jada **apenas** existitzen. Jose Angel Irigaray

Ondo bizitzen ohituak daude, eta **apenas** dakite sufrimenduaren berri. Jokin Muñoz

Beheko arimak, gorputz hilkorrak abailduta, gorputza bera barnetik gobernatzeko ere **apenas** da gauza; halere, ahal duen neurrian duintzen du, eta inguruan dituen beste gorputzetan ere jarduten da, ahal duen eran, eraginkortasun askoz ere motelagoz. Imanol Unzurrunzaga

Adibidez, Finkielkrautek azken 50 urte honetan mundua, edo Europa bera, "deseuropartzen" eta "desmendebaltzen" ari dela, ikusi uste badu Parisen, kezka handiz, kezka handia Espainian **apenas** ematen du justu "deseuropartzea" izan litekeenik, azkeneko 500 urte ezeuropar konstantearen ondoren... Joxe Azurmendi

Apenas osatuxe, baina diru premia larrian zela (etxea ordaintzen ari eta, emaztea eta hiru seme-alaba zituen) berriz ere lanera jo zuen. Pablo Sastre

-Apenas zakiat dantzan -desenkusatu zitzaion Ada, deliberamendu handirik gabe. Anjel Lertxundi

Nik **apenas** bereizten nituen katuak, loroak eta adiskideak. Matías Múgica

Izan ere, lehenago, bulegoko orduetan, ohiko paperei **apenas** jaramonik egiten ziela, zeruan ageri zen, baina izpirik jaurtikitzen ez zuen eguzkiaren biribilari jarraitzeari ekina zion, leihoari begira zegoen beraren idazmahaiaren aulkitik. Pedro Alberdi

Berriro diot: hau **apenas** da Hugok begiekin ikusi duena, ikusi. Koldo Izagirre

Kalean ere, **apenas**. Arantxa Iturbe

Behelaino esnetsuak bisibilitatea kenduko du eta, hurretik ere, zuen enbarkazioa **apenas** ikusiko da. Joseba Sarrionandia

Nik Arantzari esaten nion horiek ez zirela intziriak, Maddik **apenas** egiten zuela negar, soinu horiek beste zerbait izan behar zutela, uzteko bakean, eta pasako zitzaiola. Iban Zaldua

Yatea ere ainguraturik zeukan lekutik **apenas** eta oso noizean behin mugiarazten zuenez, ez zuen Dili eta Kupangera gasolina bila joan beharrik izango, bidaia hura arriskuz beterik ikusten baitzuen orain. Xabier Mendiguren Elizegi

Jendea bazkalosteko lo-kuluxkan zegoen eta horrelakoetan **apenas** ezer entzuten da herri horietan. Jon Maia

Gau hartan hasi zuen Nick Valdibiak sei eguneko bilaketa eroa, **apenas** lorik egin gabe eman zituen egunak, eta etxeko sartu-irten bakanetan ere lo kuluxka arinen batetik esnatu orduko kontrabaxua jotzen hasten omen zen. Pako Aristi

-Esan ez dinat, ba, **apenas** ikusi dudala? Ai, ai, ai, Alazne. Fernando Morillo

2 (menpeko perpauseko aditzak -en atzizkia duela)

San Francisco-Reno hegaldia oso laburra da, eta **apenas** dagoen astirik Sierra Nevadako mendi tontorrei goxo-goxo antzemateko, are gutxiago mendi magaleko harri gorriak eta Ponderosa pinuak arretaz begiztatzeko. Javi Cillero

Apenas eramaten duten, itzulitakoan, hondar alerik zapatetan. Hasier Etxeberria

Mendebaldeko mundua, antzeko baina hain ohargarria ez den erromatar Augustoren lorpenarekin ohitua, historia sinikoan adituak direnengandik kanpo, **apenas** ohartu den Liu Pangen existentzia historikoaz. Iñaki Mendiguren

Jorge eta Txori ordu erdi gehiago geratu dira, baina **apenas** hitzik gurutzatu duten; Txorik zer edo zer komentatu du ongarri kimikoen prezioaz, baina Jorgek ez dio elkarrizketari eutsi. Iban Zaldua

Markarik hausteko arriskurik ez duen meetinga **apenas** inork aintzat hartzen duen. Joxerra Garzia

Bere hizketarako modua erabat baztertzen saiatu naiz urte luzetan, gazteleraz ere **apenas** mintzo naizen. Harkaitz Cano

Poliki noa bidean behera; izan ere, trafikorik **apenas** dagoen, eta horretaz baliatu nahi dut. Xabier Etxabe

Hala ere, esan dut umetako jostaleku izan nuela baserria; neure oroimen lanbrotsuan **apenas** dudan horren arrastorik, baina argazkiak dauzkat esandakoaren froga argi eta ukaezin. Xabier Mendiguren Elizegi

Apenas lorik egin dudan. Patxi Zubizarreta

Apenas hitzik egin didazun, etorri naizenez geroztik. Mirentxu Larrañaga

Horregatik da estiloz soila; esaterako, **apenas** erabiltzen duen modalizaziorik: komeniko litzateke, beharko genuke eta antzeko leungarririk. Patxi Altuna

Apenas iristen diren baserriraino. Arantxa Iturbe

Eta eguraldiak **apenas** duen mintzorik: itxura franko, horixe! Pello Zabala

Gauzak **apenas** aldatu diren handik hona. Juan Garzia

Londreseko Heathrow aireportutik JFKrako hegaldia nahiko lasaia izan da, baina **apenas** egin dudan lorik. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apenas agertu (4); apenas aipatzen (8); apenas aldatu (3); apenas antzemateko (3); apenas astirik (3); apenas atera (4); apenas axola (3); apenas begiratu (4); apenas begiratzen (3); apenas bi (3); apenas da (3); apenas dago (11); apenas dagoen (17); apenas dakite (3); apenas deus (3); apenas duen (7); apenas duten (3); apenas egin zuen (3); apenas egiten zuen (5); apenas egon zen (4); apenas eman (3); apenas ematen (4); apenas entzuten (4); apenas erabili (4); apenas erabiltzen (5); apenas esan (4); apenas ezagutzen genuen (3); apenas ezagutzen zuen (3); apenas ezer esaten (3); apenas gelditzen (3); apenas geratzen (4); apenas hitz egin (11); apenas hitz egiten (5); apenas hitzik egin (4); apenas ibiltzen (3); apenas ikusi (4); apenas ikusten den (3); apenas ikusten zen (4); apenas inork (3); apenas iristen (4); apenas izan zuen (4); apenas izango (8); apenas izaten (7); apenas jan (3); apenas jokatu (8); apenas mugitu zen (3); apenas nabaritzen (6); apenas

nabarmentzen den (3); **apenas nabarmentzen zen** (3); **apenas nuen** (4); **apenas oroitzen** (3); **apenas sumatzen** (6); **apenas ukitzen** (4); **apenas uzten** (3); **apenas zegoen** (12); **apenas zuen** (5); **apenas zuten** (4); **arte apenas** (3); **artean apenas** (7); **baina apenas** (20); **buruz apenas** (3); **dut apenas** (3); **egun apenas** (4); **ere apenas egiten** (3); **ere apenas ezagutzen** (4); **euririk apenas** (3); **ez dago apenas** (3); **ez du apenas** (6); **ez zen apenas** (6); **ez zuen apenas** (6); **gabe apenas** (3); **hartan apenas** (5); **horiek apenas** (3); **horrek apenas** (4)

---

apendicitis ik **apendizitis**.

---

apendikular *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)* **1** *izond* apendizeari dagokiona.

Arteria **apendikularra** edo apendize-arteria arteria bat da, arteria ileokolikoan sortzen dena. ETC-entziklopedia

Hiru klase (aszidiazeoena, apenikularioena eta taliazeoena) eta 2.000 kordadun mota baino gehiago biltzen dira tunikadunen baitan. Horietan ezagunak dira, besteak beste, **apendikularioa** eta aszidia. ETC-entziklopedia

2 *eskeleto apendikular* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hezur hauek luzetarako ardatz batean antolatuta daude, eskeleto axial edo ardatz-hezurdura (gorputzaren erdialdean), non **eskeleto apendikular** edo gorputz-adarretako hezurdura lotzen den. ETC-entziklopedia

---

apendize **1** *iz* zerbaiten zati ez-funtsezkoa; bereziki, heste itsuaren behealdeko luzaketa mehea eta barne-hutsa.

Medikuak esan duenez zera dik... **apendizea** -edo -erantzun zidan izebak. Joan Mari Irigoien

Ez dut medikuengana joateko ohiturarik, ez naiz neure bizitzan sekula gaixorik egon, **apendizea** kendu zidatenean izan ezik. Joxe Austin Arrieta

Eta totalitarismo horien barruan, literatura politikaren luzapen edo **apendize** bilakatzen zuen inposizioaren aurka aritu zen. Berria - Kultura

Nire hankak eta nire besoak, eskuak, hatzak, nire **apendizeak** jada ez ziren nireak, gomazkoak balira bezala erabil zitezkeen pilota hanpatuak baizik. Jon Alonso

Tontakeria omen zen **apendize** -ebaketa, gonbitoak, eta alde egiten ez zuen sukar altua, azalpenak ematera etorri zitzaizkion medikuen aurpegiak. Bat-batean zuri motelez pintaturiko hatzak sartu zaizkit aluan eta barrutik urratu naute, oinaze zahar bat sentitu dut, eta horregatik utzi naiz, ezaguna zelako, joan arte, guztiz hustu arte, edo beste modu batera esanda, guztiz beterik sentitu arte, **apendizeen** jabetza eta erreinua berreskuratuz, buruaren botere absolutua, masailetako tik traidoreen hondamendia, sorbaldetako kirioen akabera. Iban Zaldua

2 *apendize bermiforme* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Apendize bermiformea da heste meharraren eta heste lodiaren arteko junturan kokatua dagoen luzakin formako organoaren izena, baina euskaldunek aspaldi samarretik hestesobrea esan diote horri, agian aparteko eginkizunik ez zuelako. ETC-prentsa

Medikuntzan **apendize bermiforme** ('zizare formako') deritzon hori ehunezko zilindro mehe bat da, arkatz baten tamainakoa, eta heste lodiaren eta mehearen arteko mugan dagoen heste itsuaren bukaeran dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

apendizitis *(orobat **apendicitis**)* *iz* heste lodiaren amaieran dagoen apendizearen hantura.

Hogeita hamar edo berrogei urte dituztenean, aldi berean gaixotasun berdinak jotzen ditik biak, gibeleko koliko batek edo **apendizitis** batek, eta bizitzeko edo hiltzeko aukera berdinak geratzen zaizkiek. Xabier Olarra

Apendizitisa dagoenean, ebakuntza egiten da eta kito; barizeekin ezin da beti hori egin. Berria - Gaiak

Etortzen zen medikuak ez zekien zer erabaki tripan neukan gaitz hartaz, eta orduan **apendizitisa** nuela ebatzi zuen. Pello Lizarralde

Zalantzak sortzen dira (jasango ote dut?, gauza izango ote naiz?); konparazioak egiten dira (kolikoak baino min handiagoa ematen ote du?; orain urtebete izan nuen **apendizitisa** baino mingarriago ote?). Arantxa Iturbe

Izan ere, amaren egoerak txarrera egin zuen, eta hala egon zen egun batzuetan, hil ala bizi, **apendizitisak** peritonitisa eragin ziolako. Joan Mari Irigoien

Sabeleko arazoagatik, zuntz hausturagatik eta **apendizitisaren** ondorioz bi hilabete eman ditut jokatu gabe. Berria - Kirola

Baliteke txikitako gomuta izatea, umetan pasatako **apendizitisarena**. Urtzi Urrutikoeetxea

Halaber, logika hori azken ondorioetaraino eramanez, ebakuntzarik ere ezingo genuke onartu: **apendizitis** soil batek hil gaitzan utzi, eta kito. Joxe Austin Arrieta

---

apendu, apendu, apentzen *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* da/du *ad* mendekatu.

Eldarnioa nitaz jabetu zen: Jainko maitea, nola **apendu** ni, jainkosa honen nanoa! ETC-literatura, saiakera

Haiek bere iritzia ematera akuilatzen zutenean, koadro batekiko bere miresmena adieraztera kasurako, isiltasun ia gozakaitz bati lotu ohi zitzaion, baina baita bere burua berehala **apendu** ere, jakinez gero koadro hura zein museotan zegoen, zein datatan margotua zen, edo beste edozein argibide material eman ahal izanez gero. ETC-literatura, saiakera

Horregatik, Anak filmeko azken eszenetan bere burua sakrifikatzen du, ongiaren alde apustu eginez eta barruan daramatzan emakume horien guztien heriotza **apendu** nahian. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

apentzia *iz ipar* aparantzia, itxura.

Mintzaldiek egin den bidea erakutsi dute, eta egitekoa denari bekoan beko so egitea ez dute saihestu, **apentziarik** ere. Herria

Leku egokia zuten **apentziaz** zeren ederrak ziren. Herria

---

apeo *iz* euskarria, apirikua.

Joan den urtean Goizuetako udal artxiboan aztarka nenbilela, 1427 garren urteko **apeo** batekin egiten nuen topo. Patziku Perurena

---

apepsia *iz* digestio disfuntzioa.

1868an, pubertaroan ezin dutela jan uste duten neska gazteen koadroari **apepsia** histerikoa deitu zion. Berria - Euskal Herria

---

aperentzia ik **aparantzia**.

---

aperitibo *iz* bazkari aurrean, gosea akuilatzeko, hartzen den janari edo edari poxia.

- **Aperitibo** bat bitartean...? Xabier Mendiguren Elizegi

Eguerdi aldera, berriz, han gertuko tabernaren batean **aperitifa** hartu eta elkarrekin bazkal-tzen genuen. Anjel Lertxundi

Aperitiboa hartu genuen Amaiur, Urdazubi eta Zugarramurdiko ostatuetan. Daniel Landart

Inguruko bulegoetako eta erakunde ofizialetako langileak hara biltzen ziren **aperitiboa** hartzera. Oroitzen nintzenez, sarrerako pasabideak barne patio batera jotzen zuen, **aperitiboa** hartzeko mahaiez hornitua uda partean. Joxemari Iturralde

12: 25ean etxera sartzen zen berriro bazkalaurreko **aperitiboa** hartzeko. Bego Montorio

Reinhardten ekoizpen batean agertua zen, eta **aperitiboa** hartua zen Piscator-ekin. Koro Navarro

Hemen tabernetan **aperitiboa** egiteko ohitura dago. Berria - Harian

Horrelakoetan beransko hartzen den **aperitiboari** euskal gustu baten aurkitzeko gisan, arratsaldeko oren batean biltzea proposatzen dute, euskaldunen karrika eta Poissonerie karriken izkinan, hain zuzen Gure Irratiaren aitzinean. Herria

Aperitiboen ardura hartzea bazenuen; nik ezin dut dena egin. Eskarne Mujika

Gran Viako kafetegia jendez gainezka zegoen **aperitiboko** ordu hartan. Joxemari Iturralde

Aurten giroa osoki ezberdina zen, Elizaberri auzoko besta komitekoak hor ziren igandean, auzapezak bi agerraldi egin ditu, **aperitiborako** lehenik eta partidentzat ondotik. Herria

Abegikortasun gehiegizkoa, esan bezala, handiegia; behinola nire irakasle izana da Zürichen, estimatu izan dut, baina ez dut **aperitibotarako** astirik. Joxe Austin Arrieta

Aperitibo gisa azeituna beteak atera ditu, eta ardo zuri hotza ari dira edaten kopa luzetan. Joxemari Iturralde

Kafetegia, behin **aperitibo** ordua pasatu ondoren, husten hasi zen eta laster ekingo zioten bazkariak zerbitzatzeari.- Joxemari Iturralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aperitiboa hartzera** (4)

---

aperitibotxo *iz adkor* aperitibo xumea.

Ea, Julio, atera iezaguzu **aperitibotxoa** hasteko. Joxemari Iturralde

---

aperitifa *(orobat **aperitif** g.er.) batez ere ipar iz* aperitiboa.

Azaroaren 8 an, 12 tan **aperitifa** ostatuan. Herria

Aperitifa 12 tan eta bazkaria Ogibarnea ostatuan. Herria

19 etan **aperitifa** Triki taldeak alaiturik. Herria

13 etan dantza-jauziak eta **aperitifa**. Herria

19 etan, zozketaren bereztea, azken **aperitifa**. Herria

12 etan **aperitifa** eta angira jatea Zelaiko gazteriak antolaturik. Herria

12 tan **aperitifa** eta errekiak Baigura kartierean. Herria

Helduden larunbatean maiatzaren 24 ean Ahetzeko trinketean aratseko 8 etatik landa argazki bideo erakusketa, **aperitifa** pintxoekin, guzieri ongi etorri, helduden larunbatean, Ahetzera! Herria

Ondotik, **aperitifa** eta afaria (15 euro). Herria

Kanboko antolatzaileek xutik ezarri egitaraua aberatsa zen aitzineko urteetan bezala: merkatu, talo, **aperitifa**, dantza eta kirol. Herria

Aperitifa zerbitzatzen zen guneetarik urrundu nintzen. Itxaro Borda

Nik, kuraia guztia bilduz, proposatu nion **aperitifa** elkarrekin hartuko genuela. Daniel Landart

Artean Maiek **aperitifa** zerbitzatu zuen, Fanchen erleen eztiz troxatu gozokiak mahaian pausatuz. Itxaro Borda

Urtero bezala, poema liburu kolektiboa aurkeztuko dute, eta liburuko poemak idatzi dituzten sortzaileak batuko dira, eguerdian **aperitifa** dastatu ondotik elkarrekin bazkaltzeko. Berria - Kultura

Aiherrako elizan hasirik, Auxotea ostatuan bururatu dira **aperitifa** eta afari on baten inguruan, omore hoberenean. Herria

Herriak eskaini **aperitifa** edan eta joan gira familia eta gomitak Izpurako Bentaberri salarat, nun egin baitugu apairu bat ezin hobea. Herria

Aperitifaren garaian, inondik ere amestu ezin nezakeen proposamen bat egin zidan. Anjel Lertxundi

Ez nau batere erakartzen: **aperitifaren** ordua da; izaki bizidun, txakur, gizaki, berez mugitzen diren masa bigun horietatik guztietatik gehiegi ikusi dut dagoeneko. Monika Etxebarria

Igande eguerdiko **aperitifa** tenorean! Ramuntxo Etxeberri

Garai urrun haietan, hautagai baten balio eta sinesgarritasun politikoa, mintzaldiaren ondotik eskaintzen zuen **aperitifaren** oparotasunaren arabera trenkatzen zen. Itxaro Borda

Tolosako jatetxe baten menu-orriak zioen bezala, "ziska-miskak", kasu honetan UBIn eskainiko zitzaien jaki nagusirako **aperitif** gosegarria. Joxerra Garzia

Animazio frango izanen dira **aperitifatik** goiti, bazkari denboran, eta aratsaldean. Herria

Aperitifa on baten inguruan bururatu da elgarretaratze hau. Herria

7etan **Aperitifa** alaitua. Herria

Goizeko 11ak 30etan, **aperitifa** aitzin, haurrek kantu eta dantza batzu eskainiko dizkigute. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aperitifa alaitua** (3); **aperitifa bat** (6); **aperitifa denboran** (3); **aperitifa eskainia** (6); **aperitifa eskainiko** (3); **aperitifa eta afari** (3); **aperitifa eta angira** (4); **aperitifa eta bazkaria** (13); **aperitifa eta errekiak** (3); **aperitifa eta jatekoen** (3); **aperitifa hartu** (4); **aperitifa herriak eskainia** (3); **aperitifa herriko etxeak** (6); **biltzarra akabatzean aperitifa** (3); **burrasoek eskaini aperitifa** (3); **dira aperitifa** (3); **etan aperitifa triki** (3); **ondotik aperitifa** (14)

---

aperitifaño *iz ipar adkor* aperitibo xumea.

- **Aperitifaño** bat, arratsa ongi hasteko. Eneko Bidegain

---

aperturismo *iz* politikaren arloan intrantsigentzia apaltzeko joera.

Espainiako **aperturismoaren** eta garapen turistikoaren ikurra agertu nahi izan zuen arren, frankismoaren errepresio gordinena erabili zuen: 1968ko abuztuan salbuespen egoera ezarri zuen Euskal Herrian; Bizkaian eta Gipuzkoan, hain zuzen ere. Berria - Harian

---

apertzeptzio *iz* pertzeptziorik eza.

Norberaren buruaren kontzientzia (**apertzepzioa**) niaren errepresentazio bakuna da, eta horren bitartez subjektuan dagoen anizkunki oro berezko ekimenaren indarrez emana izango balitz, orduan barneko begiespena intelektuala izango litzateke. Ibon Uribarri

Barneko hautemapen hau **apertzepzio** soila, "nik pentsatzen dut", besterik ez da, adigai transzendental guztiak ere ahalbidetzen dituena. Ibon Uribarri

Nik **apertzepzio** hutsa deitzen diot enpirikotik bereiztearren, edo baita jatorrizko **apertzepzioa** ere, zeren bestelako adigaiek lagun egin ezin dioten autokontzientzia baita. Ibon Uribarri

Jatorrizko baldintza transzendental hau **apertzepzio** transzendentala besterik ez da. Ibon Uribarri

Ezin daiteke ezein Norbera egonkor edo geldikorrik egon barneko agerpenen isuri horretan, eta barneko sentsua deitzen zaio eskuarki, edo **apertzepzio** enpirikoa. Ibon Uribarri

Apertzepzioan denbora benetan nigan soilik errepresentatzen baita. Ibon Uribarri

Adimenak a priori esperientziari oro har sentimena eta **apertzepzioaren** erregelak ematen dizkio baldintza subjektibo eta formalen arabera, eta hauek besterik ez dute ahalbidetzen hura. Ibon Uribarri

Apertzepzioaren batasun hau bera da erregela errepresentazioen anizkunki bati dagokionez. Ibon Uribarri

Apertzepzioaren batasun transzendentala irudimenaren sintesi hutsari lotzen zaio. Ibon Uribarri

Apertzepzioaren batasun sintetikoaren oinarri-esakunea adimenaren erabilera ororen oinarri-esakune gorena da. Ibon Uribarri

Errepresentazio jakinen (izan bitez begiespenak nahiz adigaiak) anizkunkia oro har **apertzepzioari** menperatzen dion adimenaren ekintza, berriz, judizioen funtzio logikoa da Ibon Uribarri

---

apertzepzio *iz* pertzibitutako objektuaz kontzientzia hartzea.

Apertzepzioa bera da kategorien ahalgarritasunaren oinarria, zeinek beren aldetik begiespenaren anizkunkiaren sintesia besterik errepresentatzen ez duten, anizkunki honek bere batasuna **apertzepzioan** duen heinean. Ibon Uribarri

---

apeta 1 *iz* inolako premiak eragin gabe sortutako desira, guraria.

Txikitan erabateko askatasunean hezitako haurrarengan bezala, berarengan dena zen **apeta** eta nahikeria. Jose Morales

Narratzaile baten **apeta** eta nahikeriaren menpeko. Jon Alonso

Bezero batzuek **apetak** izaten zituzten. Pello Lizarralde

Zaharrekin eta gaixoekin, berriz, ona zen, haien **apetak**, haien berekoikeriak ulertzen zituen, eta haien kontura barre egiten zuen. Josu Zabaleta

Halako batean, zaldiak hala nahi izan zuelako edo halabeharraren **apeta** izan zelako, azokara iritsi zen. Felipe Juaristi

Berriro jo zuen zigorraren kirtenaz, jotzen segitze aldera baino ez, bazekien-eta ez zutela irekiko Pedro Páramori hartarako **apeta** egin arte. Juan Garzia

Idazle eta emakume libre izateko **apeta** bete zuen Emilia Pardo Bazánek kontatzen du: [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beste batzuen **apetak** betetzeko zaude hor, ez beste ezertarako. Oskar Arana

Ederki geundeke Agentzia Dermoestetikoko hirugarren mailako agente bati nahi zuen jende guztia, eta gorrotoak, edo **apetak** eman diola beste inolako arrazoirik ez dela tarteko, hiltzen utziko bagenio. Jon Alonso

Bizitza deitzen den izadiaren anomalia horrek **apetan** oinarritua behar du izan, gezurrean beharbada. Josu Zabaleta

Eskaintzen zidan aukera onartu beste erremediorik ez nuen, hots, Madrilera joan eta Eugeniaren **apetara** makurtzea. Ramon Saizarbitoria

Dirua bere esku edukitzea gustatzen zitzaion, arautzat zeukan aldian behin hogei-hogeita hamar duro bere **apetetarako** gastatzea. Josu Zabaleta

Garai bakoitzak bere modak ditu, eta izenak ere ez dira modaren **apetatik** libre. Joxerra Garzia

Herrestan ibili da bere **apetari** jarraiki. Itziar Otegi

Gure ezagutzak ausaz edo **apetaz** ez, baizik a priori era jakin batera determinatzen direla ere aurkitzen dugu. Ibon Uribarri

Andres ia guztiz ezezaguna zuen herri hari begira egoten zen, eta **apetazko** mila aieru egiten zituen hango biztanleen bizimoduari buruz. Josu Zabaleta

Claire **apeten** menpeko izakia zen, txit gozoa, baina atertu gabe sesioan zegoena. Karlos Zabala

Kario pagatu behar izana zuen harengatik, eta horrek miretsirik utzi gintuen denak, gizona ez baitzen halako **apetetan** dirua xahutu zale. Aingeru Epaltza

Halako giza piltzar potoloa bihurtu zen, nire nahien eta **apeten** menpe erabat. Karlos Zabala

2 (izenondoekin)

Ez ziren ezertaz ere konturatzen, beren buruaz eta beren plazeraz hartuegiak baitziren horretarako, baina, **apeta** berrien eraginez, zelai erdian dagoen belar-meta baten antzeko zerbait bilakatu zen masaje-ohea. Joxan Elosegi

Niri esateko zerbait izanen zuen idatzi zidan egunean edo, beharbada, **apeta** huts bat zen. Monika Etxebarria

Nahiz eta, erresumaren legearen arabera, feudoak aldagarriak izan, ez ziren ematen edo kentzen **apeta** hutsez eta arbitrarioki. Iñaki Iñurrieta

Izan zitekeen trabes bat edo zor handiren bat, edo, zergatik ez, **apeta** huts-hutsa. Karlos Linazasoro

Hemen denok elkar ezagutzen dugunez, erraza zen nor nor zen asmatzea eta sekulako eskandaluak sortuko ziren gure zenbait bezeroren izenak eta **apeta** ezkutuak jakinarazi bagenitu. Jon Arretxe

Azkeneko aldian ere galdetu nizun zer ote den hemen agureei onartzen zaien **apeta** handiena. Ibon Uribarri

Zoriaren **apeta** onez, hosto bat ukitu zuen. Juan Garzia

Ahaztu mundu zalapartatsu hau eta haren **apeta** liluragarriak oro; eta ahatz zaitzala berak ere zu! Jose Morales

Jainkoari eskerrak, gizartean oraindik bada sail bat horrelako **apeta** gaiztoen mendean erori ez dena! Jose Morales

Akademian ez zen sekula musika aipatzen, nahiz eta bai irakasleek bai gainerako ikasleek **apeta** iragankor eta gaztarokotzat jasan eta barkatu. Xabier Olarra

Ahaztu mundu zalapartatsu hau eta haren **apeta** liluragarriak oro; eta ahatz zaitzala berak ere zu! Jose Morales

Heresearen setakeriak amore emango baitzukeen adimenaren diskurtsoak agortuta zeudela ikusirik, borondatearen **apeta** deabruzkoek eutsi izan ez baliote. Jon Alonso

"Godot" ezizena, egia esan, denak zain edukitzeko mania edo **apeta** erremedio gabearen ondorioz erantsi zioten besteek, eta azkenean hark ere bere egin zuen. Iñaki Iñurrieta

Zein ahula den giza gogoa, zein xaloak gure **apetak**. Karlos Linazasoro

Aspaldi honetan hortik zehar ibiliz ezagutu dudan jendilajea aztertuz gero, ez dit inork inbidia handirik ematen: konplexuz edota **apetaz** betetako pertsona faltsuak, gizonezko ahobero baina inpotenteak edo isurtzaile azkarrak, emakumezko ezin maltzurragoak edo ezin sufritzaileagoak. Jon Arretxe

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beharbada Iñigok bortxatu egin zuen, ez bakarrik sexu-**apetak** asetzeko, baizik eta baita aita probokatzeko ere. Martin Anso

Hamleti eta haren txerakeriei dagokioenez, galatzat eduki eta odol-**apeta** hustzat, liliubel bat nola udaberri jaukalean: goizerne, ez iraunkor; kutun, ez luzaroko Juan Garzia

4 ***apetak eman***

Horra zer egin zuen behin mujik buruargi batek: ezerezetik mila errublo irabazi, eta, mila errublo haiek irabazi bezain laster, **apetak eman** zion bainuontzia xanpainaz bete behar zuela, eta xanpainan bainatu zen. Jose Morales

Nabari zitzaion oihala ez zuela **apetak eman** ziolako erosiko, erabat higaturik baitzeukan bere jaka ziztrina. Jose Morales

Erabakia ez dugu hartu **apetak eman** digulako, farmazia-zerbitzuan segurtasuna handitu nahi dugulako, eta baliabide publikoen kudeaketan eraginkorragoak izan nahi dugulako baizik», esan zuen Inclanek. Berria - Euskal Herria

Ederki geundeke Agentzia Dermoestetikoko hirugarren mailako agente bati nahi zuen jende guztia, eta gorrotoak, edo **apetak eman** diola beste inolako arrazoirik ez dela tarteko, hiltzen utziko bagenio. Jon Alonso

Atenasko plazaren erdian, egunargiz, aritzen omen zen Diogenes Zakurra, **apetak ematen** zion aldiro, kanpaia jotzen: masturbatzen, alegia. Joxerra Garzia

Konpartsetako kideen ustez, ezjakintasun hori baino are larriagoa da "jaiak hasteko eguna edozein alkate edo zinegotziri **apetak ematen** dionean ipintzen ibiltzea», Pedro Prietok Berriari esandakoaren arabera. Berria - Euskal Herria

Baina, arabarra izan balitz ere, ez da ulertzen nolatan jaso zuen Xemeinek data, halako garrantzia zuen gertaera baten agirian, **apetak eman** bezala. Ramon Saizarbitoria

Noizean behin, **apetak emanda**, leihoa zabaldu eta txanpon batzuk botatzen zituen. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apeta bat (5); **apeta hutsa** (3); **apeta hutsez** (7); **baten apeta** (4); **bere apeta** (3); **da apeta kontua** (3); **ez da apeta** (7)
apetak eman (5); **nire apetak** (3)
bere apetaren arabera (3)
apeten arabera (6)

---

apetagarri *izond* apeta eragiten duena.

Beldurgarriak iruditzen zitzaizkion? Ez, inolaz ere, **apetagarriak** ziren karmin gorriaren ukituarekin. Aritz Gorrotxategi

Kontsumismoa bizitzeko estilo bat bilakatu da, bizitzeko filosofia dohakabe bat, gauza **apetagarriak** uhin-kolpez dakartzana eta horiek eskuratzen baditugu uhin gainean goazela sentiarazten diguna. Pako Aristi

Baina ahots zakar hark **apetagarri** zen oro -departamenduko ardura, lanik interesgarrienak, nesken begiramena...- bereganatzen zuen. Anjel Lertxundi

---

apetaldi *iz* apeta.

Hori ere liburuaren beste **apetaldi** bat izan baita: istorio bakoitzari abesti bat, gutxienez, lotzea! tarteka lodi idazteko joera zuen (tinta isurkor madarikatuak!), edota, frogatzeko erabili behar zen une berean, barruko tintari lehortzeko **apetaldia** barneratzen zitzaion (tinta lodiegi amorragarriak!). J.M. Olaizola "Txiliku"

Bazirudien Crabbe eta Goyle Malfoyren **apetaldiak** asetzeko bakarrik zeudela munduan. Iñaki Mendiguren

Iparrera jo behar izan zuen, jendearen eta patuaren **apetaldiak** bultzatzen zuten aldera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baditugu grina asegaitzak, joera ilunak, ahultasun aitorrezinak, **apetaldi** inozoak, frustrazio ezkutuak, barne-aldaketa irrazionalak. Pako Aristi

Gau batean, ordea, Francescoren **apetaldi** eroek eta izaera zakarrak etxeko bi emakumeak erotzeko puntuan jartzen zituzten gau haietako batean, Lucreziak eta biek Francescori opio apur bat ematea lortu zutela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Naturan eta naturatik bizi ziren gizakiei **apetaldi** txoroa iruditzen zitzaien ezerezaren erdian zegoen leku batera joan behar hori. J.M. Olaizola "Txiliku"

Apetaldi suizida hau, harrokeriazko bekatuaren ordaina, aberrazio espirituala da, arima etengabe horretaraxe emana delarik giza nortasunaren funtsa den oreka ezegonkorrean. Iñaki Mendiguren

---

apetatsu 1 *izond* apetez betea.

Jainko **apetatsuen** aldarteen menera. Aingeru Epaltza

Emir **apetatsuaren** sekretua zen. Karlos Zabala

Venancia neskame egondako lehenengo etxeko etxekoandrea emakume **apetatsu**, ero bat zen, umore guztiz zitalekoa. Josu Zabaleta

Txakur edo katuarena egiteko eskatzen zioten gehienbat eta hor jarduten zuen marruka, zaunkaka, uluka edo behar zen erara jo eta ke, bezero **apetatsuak** harrigarriro kitzikatuz. Jon Arretxe

Norbaitek ikusiko balu nolako haserre bat-batekoek zimurtzen zizkioten bekokiko izur eratsuak eta nolako suaz liskartzen zen aitarekin, izaki **apetatsua** zela pentsatuko luke. Jose Morales

Baina irakasleak oso jende **apetatsua** dira eta nork daki ez ote dien orain, salbuespen bidez, nota onak banatzeko joerak emango. Josu Zabaleta

Bazirudien, beraz, neskatoen osasunaren mesedetan Egutxi eta beste agureak **"apetatsu"** bihurtzen zirela. Ibon Uribarri

Badirudi zerebroaren alde bakoitzak kontrako alderdia gobernatzen duela, Natura halakoxe **apetatsua** baita. Ramon Saizarbitoria

-Hiru aldiz besterik ez zara etorri, eta dagoeneko eskaera hain **apetatsuak** egiten dituzu. Ibon Uribarri

Horrek ez zuen harritu, ordea, printzeak, nahiz eta Sarajevokoak izan, xelebreak baitziren gehienak, **apetatsuak** eta berekoiak. Felipe Juaristi

Beren iritzi interesatu eta **apetatsuen** mende daudenei aurre egiteko. Juan Martin Elexpuru

Aurtengo lau t'erdiko txapelketan lehen kanporaketak zozketa bidez erabaki badituzte ere, patua, beste behingoz, **apetatsua** izan da. Berria - Kirola

So egiozue zuhaitz-hosto bati, ikusi haren zain **apetatsuak**, itzalak eta eguzkiak ñabararaziriko tonuak, euri tanta batek hantxe harrotu duen puztura, intsektu batek utzi duen eztenkada, barakuilutxoaren arrasto zilarkara, udazkenak markatu duen lehen urreztadura hilgarria. Juan Garzia

Ninbo, kumulu eta zirruak ikusi zituen, harietan desegiten zirenak irudi **apetatsuak** osatu eta gero. Jon Alonso

Nolanahi ere, proposatzen dugun marko teorikoa ez da, inola ere, halako batean sortu zaigun burubide **apetatsua**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez zioten inolako barregurarik ematen haren gutizia **apetatsuek** eta biziki larritzen zuen haren grina barkagaitzei kontu egin beharrak. Mirentxu Larrañaga

Emakume **apetatsua** baita basamortua, eta batzuetan zoratu egiten ditu gizonak. Xabier Aranburu

Euskara ustez ikasia dugunoi, aldiz, ikusezinak zaizkigu euskara eta gaztelerazko hitzen arteko lotura **apetatsu** horiek. Joxerra Garzia

Bizitzako proiektu **apetatsuenari** dedikatzen zizkion ahal zituen egun guztiak: fraide beneditarren mendetako tradizioa ikertu, sailkatu eta argitaratzea. Josu Landa

2 (adizlagun gisa)

Jamesek agerian zeukan belauna zerbaiten adaskarekin kilimatzeko makurtu zenean, **apetatsu** eta isekati, emazteak purrust egin zion "gazte gizarajo hura", Charles Tansley, ondotik bialdu zuelako. Anton Garikano

Ezin jasan dezake anaia txikia **apetatsu** jartzen denean. Jokin Muñoz

Denbora mundu honetan dagoen gauzarik geldoena delako susmoak pazientzia galarazi zion, **apetatsu** jarri zen, edo antipatiko, horixe izan zen behintzat Maria andreak bere kautan erabili zuen hitza. Jon Alonso

Anai txikia hezikaitza baitugu, eta **apetatsu** jartzen denean alferrikakoak dira letaniak eta betiko suaren mehatxuak. Migel Angel Mintegi

---

apetatu *iz* desiratu.

Eta gezurra onartzera eta arima, zatika hilez, argia uzten dutenen gorputzean pilatzen dela sinestera **apetaturik** ere, arima hilkorra dela aitortu beharko litzateke, eta berdin dio airean ezabaturik hil zein zatiak kontraktaturik basatu, sentipena gizakume osoari nondinahi joaten-joaten ari baitzaio eta bizia nondinahi gutxitzen-gutxitzen. Xabier Amuriza

---

apetito *(ETCn **560** agerraldi; orobat **apetitu 55**) iz* jateko gogoa, jangura, jangalea.

Apetito ona dauka Robertok; nik, aldiz, barrualde tristea. Pako Aristi

Ausarki jan genuen, **apetitu** ederrarekin. Matías Múgica

Gelatxok **apetito** kaskarra dauka. Pako Aristi

Ez zirudien Sabethek inola ere deitoratzen zuenik dibortzio hura, alderantziz, bere betiko **apetito** bikainaz segitu baitzuen jaten, hartaz hizketan ziharduela ere, eta Orvieto zuritik edaten: ardo gozoegia nire gusturako, baina berarentzat kuttunena: Orvieto Abbocato... Joxe Austin Arrieta

Apur batera etsi egin nuen beraz eta begira gelditu nintzaion sabelkeria hari, irrika hari, gutizia hari, **apetitu** hari, mozorrorik gabeko zoriontasun hari: zelan edo halan, nonbaitetik ezagutzen nituela iruditzen zitzaidan. Urtzi Urrutikoetxea

---

apetitos *izond* gustagarria.

Baina zuk ere dastatu beharko zenuke bianda **apetitos** hori, baldin orain arte dastatu ez baduzu. Joan Mari Irigoien

Aski duzu, horretarakotz, ene hitzen fruitua mizpiren idurikotzat hartzea, zenbatenaz ustelago, hainbatenaz **apetitosago** eta zaporetsuago. Joan Mari Irigoien

Zeren, abere haiek bere puntuan akabatu eta larrutu beharra baitzegoen -edo lumatu, hegaztien kasuan-, kozinatzerakoan eta mahairat zerbitzatzerakoan gozoagoak eta **apetitosagoak** izan zitezen amoreakatik. Joan Mari Irigoien

Atsegin izugarria emaiten zidan legatz erre hark, hain bainintzen ni gose eta hain baitzegoen hura zaporetsu eta **apetitos**. Joan Mari Irigoien

Pedrok berak deliberatu zuen ezen bizkor bizi beharra zuela, denborari aitzina harturik, bizitzari, halatan, urinik eta zukurik **apetitosenak** atera ahal izaiteko. Joan Mari Irigoien

---

apetitu ik **apetito**.

---

apeu 1 *iz* engainuaren bidez erakartzen duen gauza.

Subjektuaren "adierazpena" dela esatea **apeu** bat baizik ez litzateke, beraz, hauentzat, eta subjektuaren kontzeptu faltsu bati dagokio. Josu Zabaleta

Thévozen iritzian, ikus daitekeenaren hegemoniaren eta hegemonia hori **apeu** gisa erabiltzearen "goreneko maila" da pintura mota hori. Josu Zabaleta

Biharamunean, baina, aldamio hutsak nabari, dena umekeria inozoa besterik ez, Baikortasunerako **apeua**, neonezko paper pintatuak Gauari aitzi, eta Herioari aitzi... Joxe Austin Arrieta

2 ***arrantza apeu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arrantza apeua arrantza artifizialeko amu mota bat da, arrainaren arreta erakartzeko diseinatua. ETC-entziklopedia

Euli artifiziala edo arrantzarako eulia **arrantza-apeu** mota bat da, normalean euli-arrantza kirolean erabiltzen dena (nahiz eta beste kanaberarekiko arrantza modu batzuetan ere erabil daitekeen). ETC-entziklopedia

---

apez 1 *iz ipar* apaiza.

Hauen artean amorragarri eta higuingarriena honakoa: **apez** batek, krimenez beteta egonagatik ere, Jainkoa ogi zati batera ekartzeko boterea du, hitz magiko batzuen bitartez.. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina **apeza** dut bakarrik, eta doi bat, nik ezagutu. Piarres Aintziart

Aldi guziz bazuen bere efetua, kanpotik ere jiten ziren sartze horren ikusteko: memento hartan begi guziak bereganatzen zituen, ez zen gehiago ez **apezik** ez aldarerik konda. Michel Oronoz

Han elkartu ziren bakarrik **apeza**, bera, bezperan abisatzera etorri zitzaion Graxi andrea eta hil-hobi egilea. Elena Touyarou

Ez dakit noiztik zuen harremana aita Joxe Agustin Mendizabalek Don Zesareo Elgarresta Segura Irratia martxan ipini zuen **apezarekin**. Pello Zabala

Apezak, halako batean, halaxe esan zion ogi-barra bat besopean zeraman elizkideari: Josetxo Azkona

Gestapoa ohartu zen, ordea, noizbait, **apezaren** jukutriaz. Eneko Bidegain

Orduko Arnegiko **apezaren** izena: Laharreguy. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Mikel Epalza, **apeza** eta arrantzaleen aumonierra. Menane Oxandabaratz

Herriko **apeza** filosofo merke lanetan zinpurtzen zen, ahoa plegatuz, hobiaren zakarretik bizi berri baten ildoak zabaltzen zirela uste zuelako. Itxaro Borda

Nolabait esan, xantrea eta eskolaua, batez ere, kantuaz arduratzen ziren hasiera batean, eta sakristaua ez preziski, baina, atzenean hiruek zizuten eginkizun berdintsua: **apezak** lagundu elizako zeregin aunitzetan. Patziku Perurena

- **Apeza** abisatu behar dugu, ez? Daniel Landart

Filmetako banpiroak ez dira gehiago asaldatzen **apezaren** gurutzearen ikuskizunarekin, emakume hura hiriaren armarriak eta udal zigiluak ikusita baino. Aingeru Epaltza

Gure baso-lanetan aditua eta saiatua izan zen Inozenzio Munita **apezak**, Arama herri pinpirin horretan parroko izanak, estimaziorik badio altzari. Pello Zabala

Etxeko bi seme **apezek** 1787an berreraiki zuten, bigarren harri batek salatzen digunaz:.... Xipri Arbelbide

Hola jakin nuen Bordes **apeza**, Akizeko bikario jenerala, ene gaineko auzoaren auzo zela. Marzel Etxehandi

Apeza Aita Santuarena da. Koldo Izagirre

Dena **apezen** eskuetan dago! Fernando Rey

Etxauzek berak aurkitua zion Pedro Agerreri aterpea Sorbonan, iaz, De Lancreren atzaparra **apezaren** lepoaren inguruan hertsatzen hasi zelarik. Aingeru Epaltza

Aitak beti esaten zuen **apezak** eta jendarmeak errespetatzen baziren, nahikoa zela. Ana Urkiza

Horri dagokio ere bataiatzeko boterea, nahiz orok bataia dezaketen halabeharrez; baina ofizioz, **apezek** bakarrik bataia dezakete. Piarres Xarriton

Amikuztarra nauzu, eta bazter hauetako **apez**, fraide eta monje jende guzti-guztiak ezagutzen ditut. Aingeru Epaltza

2 (izenondoekin)

Nola ongi egiten baitute **apez** zintzoek elizan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Apez xahar-xahar bat, aspaldi hartan presondegian zebilena eta heriotza kondenaren kontra kartsuki borrokatu zena. Filipe Bidart

Osaba Eñaut **apez** zenduarekin neskame izandako Giselle mendikotarsa ere, oso pozik egonen baita gu hiruron zerbitzutan: zahar bat, edo biga, edo hirur horretara, zer liferentzia? Txillardegi

Garat **apez** nausia meza emaile lehen, Kattin jatsuarra segiarazle eta beste irakurleak harekin, Maritxu lasarra organoan goizean eta Felixa, ama, aratsaldean, eta herri guziak oro batean kantari, hori baitzen zinez koro ederra. Herria

Karia hortarat Herria-k ere bixtan da omenaldi bat zor dio astekari hau sortu eta hain luzaz kudeatu zuen **apez** kartsu eta jakintsunari. Herria

Parisen, Huvelin **apez** sainduari kofesatu ondoan, Jainkoari buruz itzultzen da gogo guziaz eta zintzoki. Herria

>03Borl01¬17<-Arrotzek herriko **apez** sainduak mezak erdaraz eskaintzera bortxatzen zituzten, denek konprenitzeko eran.

Honaino **apez** jakintsu eta zuhaitz-lagunaren kontu jakingarriak. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hildakoaren dirua eliza, kanposantua eta **apez** etxea konpontzen igorriko zuela esan zion Bidarti. Gotzon Garate

Gaineko plazan, **apez**-etxearen ondoan, etxe ttipi batean bazen moda zaharreko botiga ttipi bat, Matiasenea erraiten zioten, ilun bezain hertsia. Michel Oronoz

Haren anaia, **apez** eskolan ibiltzen zena, denbora guzian katzakan ari zen administrazio alemanarekin, Joanes librarazi beharrez. Eneko Bidegain

Laborari baten soinekoekin, bere **apez** lana aintzina eremanen du gordeka. Herria

43 urtetan **apez**-ordena eskatzen du eta ukaiten Viviers hiriko apezpikuaren eskutik. Herria

4 ***apez zinegile*** frantziar iraultzaren ondoren errepublikaren alde zin egin zuen apaiza.

Handik eta laster parrokia utzi behar izan zuen Iturbideko apezak beste apez lagunekin, Salvat Dibasson, apez **zinegileak** hartzen zuela segida. Xipri Arbelbide

Herri ttipietako jendeek ez zituzten onartzen beren apezak ordezkatzen zituzten apez **zinegileak** ; beraz, ez ziren elizkizunetara agertzen. Elena Touyarou

5 *goi apez*

Sermolariak, diakonoak, fraideak, hadjiak, **goi** -apezak, muazinak, brahmanak. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**
>
> **apez aldarean** (15); **apez bat** (54); **apez batek** (34); **apez batekin** (7); **apez baten** (16); **apez bati** (5); **apez batzu** (7); **apez batzuek** (5); **apez berri** (6); **apez berriak** (6); **apez bezala** (5); **apez egin** (7); **apez egiteko** (5); **apez erakasle** (6); **apez etxe** (5); **apez etxean** (8); **apez euskaldun** (6); **apez gai** (8); **apez gazte** (9); **apez gaztea** (5); **apez gazteak** (6); **apez gisa** (9); **apez hori** (18); **apez horren** (6); **apez hura** (5); **apez izaitea** (8); **apez izaiteko** (13); **apez izan** (12); **apez izan nahi** (6); **apez izendatze** (6); **apez kartsu** (6); **apez kartsua** (5); **apez lagun** (17); **apez lagunak** (5); **apez lagunen** (5); **apez lana** (8); **apez multxo** (6); **apez nahi** (5); **apez zaharra** (5); **apez zena** (5); **bere apez** (19); **beren apez** (9); **beste apez** (13); **ene apez** (7); **gure apez** (10); **hango apez** (5); **hemengo apez** (5); **hiru apez** (6); **jaun apez** (5)
>
> **apeza izan** (6); **apeza nintzela** (7); **apeza zen** (9); **apeza zendu** (7); **azken apeza** (9); **herriko apeza** (11); **jaun apeza** (27)
>
> **apezak benedikatu** (8); **apezak egin** (7); **apezak eman** (7); **apezak idatzi** (5); **apezak utzi** (7); **herriko apezak** (12); **jaun apezak** (14)
>
> **apezaren inguruan** (6)

---

apezburu *iz* apaizburua.

Jadanik zenbait urte hartan Hazparneko kongregazioan direnek nobiziadua laburtua izatea merezi dutela azpimarratzen du, **apezburuek** asko sofriarazi dietelakotz eta baldintza guziak onartu dituztelakotz. Xipri Arbelbide

---

apezeria *iz ipar* apaizeria.

Lapurdiko deputatu izan zen, **apezeriak** hautatua, 1789-an. Herria

Apezeriak eta zenbait jaunskilek erreformatuen kontra xaxatua zuten herriko jendaila, Maitia delako oskigilea buru zutela. Aingeru Epaltza

Irakasle gazteak frogatzen zuen alabaina, Gregorio VII.az geroztik, bost mende luze iraun zuen Jainkoaren eskuko bi ezpata haien borroka edo **Apezeriaren** eta Inperioaren arteko gatazka bururatu zela XVI. mendean. Piarres Xarriton

Apezeriaren ordezkariak aipatzen hasi orduko, solasa mozten zidan gazteluzain zaharrak. Aingeru Epaltza

Parisko gortean, Joanak katolikotzar guztien eskandalua pizten zuelarik afarian parte hartuz eta denen aitzinean otoitz eginez, Borboikoa mezatara itzuli zen, **apezeriaren** gozagarri. Aingeru Epaltza

---

apezetxe *iz ipar* apaizetxea.

Aterpea **apezetxea** da, baina erretorea ez da hor eta zernahi gisaz, lekurik ez. Piarres Aintziart

Bestela, aurrez aurre dauka **apezetxea** ; han egonen da Leon Marty bere erleekin.Emazteak jakitera eman zion aita Mathieu Berako **apezetxe** batean errezebitu zutela, eta bera arazorik gabe itzuli zela Baionara. Pako Aristi

Halako hanpatze batek hartzen gaitu aditzearekin arrotzeri gure Eliza Euskal Herriko ederrenetarik dela, erran ditake berdin inguruko **apezetxe** , eskola, ezkila dorrearentzat. Herria

Hazparneko **apezetxean** bada ezkontza erregistro bat, 1796tik 1801eko erdira arte gordeka egin zituen zenbait ezkontzarekin. Xipri Arbelbide

Funtsean eratorri bereziaren lehen hiru egunak **apezetxean** higatu zituen. Itxaro Borda

Zenbait urteren buruan, **apezetxeko** balkoinetik, mezatik landa, auzapeza Baigorriarreri mintzatu zen, kuraia hartu behar zutela, frontetik berri onak heldu zirela, bitoria igurikatu behar zela. Michel Oronoz

Apezetxeko borta karrankarazi zuen eta hor zen egiazki, Angeluko hondartza batean bururatu zen Ttotteren gurutze bidea hasi. Itxaro Borda

Hain zuzen gogoratzen zait, duela 25 bat urte, aita René Laurentin Pariseko kazetari ezagunak jalgi zidala, bat-batean, Saint-Amand-eko **apezetxean** , ateraldi hau: [...]. Piarres Xarriton

Izenak eman **apezetxera** deituz (05 59 28 01 32). Herria

Itzuli nintzen **apezetxera** , edo bederen herriak prestatu didan apartamendura, hor baita ene kafia, edo kantonamendua. Piarres Aintziart

Bestalde zozketa honentzat laguntzak ere helaraz ditazke **apezetxerat** . Herria

Izenak eman usaiako arduraduneri edo parropietako **apezetxetan** , maiatzaren 15-eko berantenaz. Herria

Apezetxetik hurbil antolatu baitzuten, Barnetxe erretorea eta Etxegarai bikarioa leiho gibeletik beha zauden, ahalge baitziren publikoki tobera-mustra horietan agertzeko. Michel Oronoz

Apezetxe zaharra aterpe pollit eta eroso bilakatua izana da. Piarres Aintziart

230 000 libera diru laguntza itzuli dizkio estatuari Mugerreko herriko etxeak jaz, **apezetxe** ohian diru laguntza publikoak erabiliz obrak eginik ostatu bat laugarren kategoriako lizentziarekin idekia baitu 1991-an. Herria

---

apezgai *(orobat **apezgei** g.er.) iz ipar* apaizgaia.

Azaroan joan ziren nobiziadua egitera Bastres, Dupérou eta orain arte aipatua ez zen Louis Ardans, Aldudarra, ez zena oraino ez apez, ez eta **apezgai** ere. Xipri Arbelbide

Apezak eta jende parrasta bat mobilizatu zuan Mikelen askatzeko, **apezgaia** zelako. Itxaro Borda

Ostia bila, fraide Txekiarrarengana jiten zirenak, ez ziren bakarrik apezak, baina ere **apezgaiak** , eta laiko batzuk ere. Marzel Etxehandi

Berrogei **apezgai** bazituela, (bere kongregazioaz daukagun lehen datua da.) kasik denak euskaldunak eta eskutan zeuzkaten Mauleko eta Donibane Garaziko kolejioei esker apez ainitz izanen zuela laster. Xipri Arbelbide

Baionako fraile batek idatzia zion seminario handiko hogoi bat **apezgai** oldartu zirela eta hiru kanporatu behar izan zituztela. Xipri Arbelbide

Apezgaien formakuntza izan zuen lehentasunetarik bat. Xipri Arbelbide

Uztaritzen ezagutuak nituen lagun **apezgaiak** enekin ziren berriz. Piarres Aintziart

Zinez uste dut Frantziako Elizak bere sinesgarritasun etikoa galdu duela XIX. mende hondarrean, Estatuari amore eman diolarik eta onartu duelarik bere apez eta **apezgaiek** soldaduskaren egitea. Piarres Xarriton

Hamar bat **apezgai** joan gintzaizkion Biarritzeko Kasinoan agurtzera eta, naturalki, Iparraldeko **apezgai** lagunok, gure Nazioari zor genion atxikimenduaren izenean. Piarres Xarriton

Ithorrotzeko Dassance erretorea Arnegira izendatua izan baitzen, Piarres-i galdegin zion otoi haurreri katixima egin ziezaien; horrela euskaraz aritzera bortxatua zen **apezgai** gaztea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Apezgai zaharrenen programa dela, kolejioaren geroaz arrangura dela eta horrelako arrazoi faltsuak ateratzen ditu. Xipri Arbelbide

Dominique Spina apeza bost urteren presondegirat (bat "sursis" delakoarekin) kondenatua izan da, Sebastien Vida **apezgai** ohia bortxatzea gatik. Herria

Oziniri zuzendari ordea, Pouret Mauleko zuzendaria, Hegiagarai diruzaina, Jaret Donibaneko zuzendaria, Salaberri nobizioen arduraduna, Ospital **apezgai** gazteen arduraduna. Xipri Arbelbide

Hemen badugu aski lan, eta sobera, apez eta **apezgai** abertzale horiekin. Piarres Aintziart

Bigarren saria bildu zuen bizkaitar **apezgai** batek, ja sotana jantzia, baina Etxeparek aitortzen du ez duela Bizkaiko hizkuntza izpirik aditzen Michel Oronoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
apez eta apezgai (4)

---

apezgaitegi *iz ipar* apaizgaitegia.

Bost formatzaile badauzkate eta Michel Garat samaztar apezak du **apezgaitegia** kudeatzen. Herria

Hala nola, helburuak ez duela nehoiz edozein helbide zuzenesten eta gainera, baliabide gaizto batek kutsatzen duela helburu zuzena dioten printzipio nagusiak laster ahantziak zituzten zenbaitek, **apezgaitegitik** atera orduko.Azkenik, Marracq-eko gaztelua, Napoleon ostatuz egon zen hura, hurrenez hurren kaserna eta **apezgaitegi** bilakatua, sute batek suntsitu zuen. Piarres Xarriton

Uztaritzeko **apezgaitegiak** gutiz gehienan apezak gintuen erakasle, alabaina. Herria

Baionako **apezgaitegian** zelarik, hasi zen euskararen ikasten, ahantzia baitzuen haur haurretik, aitamak goizik zendurik eta bera biarnes izeba baten etxean egonik, Ithorrotzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Neurri beretsuko zazpi zati dauzka liburuak, baina aitzin-solas bat besterik ez da lehen zatia, Uztaritzeko eta Parisko **apezgaitegietan** iragan bospasei urteak labur biltzen dituena . Piarres Aintziart

---

apezgei ik **apezgai**.

---

apezgo *iz ipar* apaizgoa.

Denborak gogorrak zirela erran zidan, berak ere hortarik sofritzen zuela, familia Berlin-en utzirik, eta beste... Noiz, non sortua, aitamak, anai-arrebak, soldadogoa, **apezgoa** ... Hortan gelditu ginen. Marzel Etxehandi

Lapurtarra izan arren, Etxeberriren bide bera urratua zuen: **apezgoa** eta Frantziako erregeren lurrak utzita, Nafarroakoaren zerbitzuko jarria zen, Erreforma euskaldunen artean hedatzeko bitarteko hoberena izanen zelakoan. Aingeru Epaltza

Giltza horren eskasean **apezgoan** sartzeko ate idekitzerik ez zegoen. Piarres Aintziart

Gero horren frogatzeko perpaus berezi bat badugu dioena honela: Jesu Kristo gure Jaunaren ondotik, Jondoni Petrirenganik hasten da **apezgoaren** ordena. Piarres Xarriton

Uztailaren 8-a, nahiz mutu izan aroa, nehor ez da muturik egon Garaziko elizan hain zen ederra eta kantuz apaindua Emile Larre-k eman duen meza bere **apezgoaren** 50 urteen ospatzeko. Herria

Aljerian hartu ninduen bat batean, gauaz, **apezgoari** buruzko dudak. Piarres Aintziart

Euskaldun gutti da gaur egun **apezgora** heltzen denik. Herria

Agresibitaterik gabe erantzun nion beste gai batzuk nituela gogoan: **apezgorako** formakuntza, lan intelektuala eta ere geroko "ofizioa": arduradunek erakustera emana zidaten ene saila itxura guzien arabera erakaskuntzan zegoela eta naski Bordeleko Letren Fakultatera igorriko nindutela. Piarres Aintziart

Joanden urtean Pierra Salla aita mixionest Betarramixtak ospatu bazuen bere 50 urteko **apezgoa**, aurten anaia Pettan-en aldi ginuen eta nola Betarramixtek denek batean ohoratzen duten hori uztailaren 28an. Herria

Zin egile gehienek **apezgoa** utzi zuten. Xipri Arbelbide

Aipatua dut ja ekuazio magikoa: **apezgoa** =zelibatua. Piarres Aintziart

Apezgoak eman ohi dituen mailak eta mintzakerak, errespetua sortzen zuten bazterretan. Txillardegi

Bere **apezgotik** aparte, bizi intelektual aberatsa darama, liburuak ere idazten ditu. Herria

Frantsesak, alferrik pentsatuko duzue errepublikari zin egin dioten elizgizonen espiritua eta **apezgo** atzerakoiarena oso ezberdina dela; badira sekula zuzentzen ez diren estatu-bizioak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

apezkoi *iz* apaizkoia.

Letrak kontsideratzeko ikusmodu estalinista **apezkoi** hori izan da, euskal letretan gailendu den bakarra. Patziku Perurena

Are gehiago, Eduardo: letrena ezezik, hitzen majia bera, metodo monolitiko **apezkoi** staliniano berberak irentsi dik hemen, "Hitzaren kirol nazionala", "Hitza jolas bihurtu zen" eta gisako ebanjelio salbadoreak lekuko. Patziku Perurena

---

apezkondo *iz adkor* apeza; apez izandakoa.

Azkue, Mujika, Kintana, Izagirre, Etxezarreta, guziak apez edo **apezkondo**, konplikatu egin dira: [...]. Patziku Perurena

Eta segidan -ni ez naiz kondaira huntakoa, jendartearen osasuna aztertu, sailkatu, kontrolatu nahiko zenukeen **apezkondo** eta ustezko epaile erreus hori. Jose Angel Irigaray

Aldiz apez eta **apezkondo**, aldiz auzapez edota Erregina Zuria bezalako jendail suertearen tankera gero eta handiagoa hartzen dio psikoanalistailari. **Apezkondo**, mezulari, misiolari, egolari, negarti eta aprobetxategiz inguratuta delakoan, zeharo mesfidati da elkargo, kofradia eta enparauez, literatura erlijio bilakatu dutenez. Jose Angel Irigaray

---

apezkume *iz adkor* apeza.

Nire lantokiko gaxte odolgabeak **apezkumeak** baino goizago erretiratzen dituk gauaz. Aingeru Epaltza

Eibartarrek **apezkumetzat** gintuzten gu. Koldo Izagirre

---

apezlagun *iz* apaizkidea.

Jainkoak daki zenbat aldiz entzun ahal den, orobat frantsesen "Catholiques et Français" famatuari zor genion euskal herritarrek erramolde hori, eta ez naiz baitezpada esaldi hori berpiztu beharrez ariko, baina iduritzen zait hausnarketa hauek bururatzean, hitzaldiño hau ere, duela zenbait urte prestatu nuena, Donostiar **apezlagun** batek eskaturik, hemen berriz ager nezakeela, ene barneko berri jakin gura duenari emaiteko baizik ez balitz ere. Piarres Xarriton

---

apeznagusi *iz ipar* apaiz nagusia.

Gero Ekintza Katoliko sortu berriaren "gramatikaria" izan zen, eta 1934an Cluses hiri gotorreko **apeznagusi** izendatu zutelarik hortik, 45 urtetan, Frantziako apezpiku gazteena izaitera heldu zen, Tarentaise ibarreko apezpiku, Moûtiers hiriko katedralean sagaratu zutelarik 1938an. Herria

Akordio guziak Arbelbiderekin eginak zirelako Heguy **apeznagusia** haserre gorrian zen, fraileen zuzendari nagusiak hitza jan eta bere gisa utzi zuela. Xipri Arbelbide

apezño *iz ipar adkor* apaiza.

Hogei urte geroago, Donibaneko gazteluburuak oraino gizon bat omen du soldatapean, **apezñoa** barrandatzea bertze lanik ez duena. Aingeru Epaltza

---

apezpiku *(ETCn **9.237** agerraldi; cf **gotzain** ETCn **6.641** agerraldi)* **1** *iz* kristau erlijioan sakramentuak emateko esku duen, eta eliz barruti bat zaintzen duen pertsona. ik **gotzain**.

Alberto **Apezpikuak** gai honetaz, Ebanjelioari buruzko iruzkinetan hitz egiten du, eta dio: [...]. Joan Mari Lekuona

Ondoko urteko martxoaren 24an hil zuten eskuindarrek Romero **apezpikua** Salvadorren, meza ematen ari zelarik. Pello Salaburu

Unibertsitateko Irakasle aipatuak sariztatzen ohi zituzten araberako kargu handienekin: kalonje, auzitegi eta kontseiluetako kide, **apezpiku** . Piarres Xarriton

Apezpiku honen garaian zen ere sortu Belokeko komentua. Xipri Arbelbide

Halakoxeak ziren **apezpikuen** , abadeen, kondeen eta beste handien arteko eztabaidak; haiek, erregeak epaitzen zituen, bere basailu nagusiekin. Iñaki Iñurrieta

Honek gutunak bidali zizkien Borgoniako erresumako **apezpiku** eta jaun nagusiei, aginduz haiek bizi artean berretsi egingo zizkiela beren ohore eta karguak. Iñaki Iñurrieta

Horrela ezagutu ditut lagunak, gaur egun **apezpiku** eta artzapezpiku direnak, berdin laster kardinale edo aita saindu gerta daitezkeenak. Piarres Xarriton

Versailles-eko bikario nagusi izan ondoan, Digne-ko **apezpiku** izendatu izan zen eta bi urteren buruan Baionara igorri zuten, 1887an, buruileko 8an sartzen zela. Xipri Arbelbide

Gehiago beha egon gabe, Iruñeko **apezpikuak** bere diosesan sartu zituen osoki 35 parropia horiek, Luzaide barne, erran nahi baita mugaz honaindiko Luzaide. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Apezpikuak herri hortara bikari zuen igorri. Herria

Hil arte egon zen beraz Baionako **apezpiku** . Xipri Arbelbide

Quimperreko **apezpikua** beneditarra baitzen, ez ote zen on izanen honek idatzi ziezaion Baionako **apezpikuari** sortu beharra zen komentu berriaz. Xipri Arbelbide

Harreman goxoak badituela bereziki Iruñeko **apezpikuarekin** , bortitzak alditz errege-ordezkariarekin. Michel Oronoz

Beheraxeago, aldarera begira, eta lehendabiziko ilaretan, espainiar Korrejidorea eseri da, eta agintari militarrak, eta **apezpikuak** eta kalonjeak, eta abade gorenak, eta deputatuak oro. Txillardegi

Haloa ilusio optiko hutsa da, aireko hezetasunak sortua, ortzadarraren antzera, baina aureola santutasun goitarrago baten zeinutzat hartzen da, **apezpikuen** mitra edo Aita Santuaren tiararen gisara. Xabier Olarra

Asaldatu egin ziren, boikota egin zieten elizkizunei, mehatxatu egin zuten **apezpikuak** izendatu erretore berria, gutik egin zuen irauli ez bazuten **apezpikuaren** beraren autoa bisita pastoralean azaldu zelarik. Koldo Izagirre

Bikario jenerala da **apezpikuaren** laguntzaile. Herria

Maiatzaren 12an, epaileek batzarra egin zuten Beauvais-eko **apezpikuaren** etxean, Joana torturapean ezartzea komeni ote zen deliberatzeko. Juan Garzia

Apezak gauez eta Labainetik urrun -**apezpikuaren** jauregitik hurbilago Paue inguruko landetxetik baino- izan zuen azkeneko enkontrua N.-rekin. Anjel Lertxundi

Burdin-sarearen aitzinean, hau da, aldarearen aitzinean dagoen karratuaren alde laburrean, pinakulu kalatu batek burutzen duen **apezpikuaren** tronua jaso dute. Koldo Izagirre

Apezpikuaren bisita. Herria

Gure **apezpikuak** Izpiritu Sainduak argituak dira beraz, bainan argi horren berri ezin jakin haien ondotik! Xipri Arbelbide

Goganbehartua ote zen jaun **apezpikua** lerro horiek bertze norbaitek irakurriko ote zituen? Aingeru Epaltza

Baionako jaun **apezpikuak** ez baihau onartuko! Piarres Xarriton

Lehen xede horretatik etorri ziren legeek hain aginpide handia eman zieten **apezpikuei** , non eliz jurisdikzioaren oinarria izan baitira. Iñaki Iñurrieta

Konkordatuak Napoleon I.aren esku eman zuen **apezpikuen** hautatzea. (Lehenago erregeen esku zen!) Erromako burulehenak ez zuen politikoen hautuari baia emateaz beste egitekorik. Xipri Arbelbide

Ohoratua izanen da erakusketa baten bidez **Apezpikuen** presondegian. Herria

Bainan horra nun, azen ontzeko, Espainiako **apezpikuen** batzarrak azkarki jorratu duen Ibarretxe-ren plana, gogor salatuz Euskal-Herriak bere buruaren jabe izaiteko ukan dezakeen nahikeria...!. Herria

1971ko **apezpikuen** sinodoak aitortu zuen gaurko munduan jokatzen diren indar-joko ezberdinei buru egiteko nazionalismo arduratsu batek emaiten diola nazioari bere nortasunaren onartarazteko behar duen indarra. Piarres Xarriton

-Kolegio sakratuan, badakizue, kardinal, artzapezpiku eta **apezpikuenean** , bi gizon irten ziren kontra, eta beste guztiak alde zeuden. Irene Aldasoro

Apezpikurik ez izanez bikario nagusien gain eman zuten tokiz aldatzea. Xipri Arbelbide

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Apaldurik geratzen naiz haren esanahiaren arazo larriaren aurrean, nire arimako begiak beheratzen ditut, hitzaren handitasun txundigarria begiztatzeko beldurrez, erreberentziaz txapela erantzi eta umilki gomendatzen dizuet galdetzeko Gibbon Kardinale Gorenari eta Potter **Apezpiku** Argiari. Xabier Olarra

Donostiako Setien gotzain edo **apezpiku** ohia mintzatu da Zarauzko frantxiskotarren elizan. Herria

1802an **apezpiku** berria etorri zelarik apezen erdiak baino gehiago 60 urtez goitikakoak ziren eta apezen kopurua ttipituz joanen zen oraino zenbait urtez. Xipri Arbelbide

Apezpiku on bat baino gehiagoko zerbait behar zen ez bazen ondorio txarrik ikusi nahi. Xipri Arbelbide

Baina, Filipinetako **Apezpiku** Katolikoen Erakunde eraginkorrak gobernuaren erabaki hori azkarki salatu du, berrirekitze horrek apustu klandestinoen hedapena lagunduko duela azpimarratuz. Ramuntxo Etxeberri

Grégoire delako **apezpiku** iraultzaile famatu hori, Lorrena eskualdean Emberménileko erretore xehe izanagatik, Nancyko diputatu egin zuten alabaina bere lagunek, eta Pariseko Estatu Orokorretara bidali, 1789an. Piarres Xarriton

Joanek, anaia zintzo eta kardinal izateko bidean zegoen Zamorako **apezpiku** jatorrak, Alfontsoren alde egin zuen, eta anaiaren damuaren truke haren askatasuna eskatu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez dut beldur makalarekin ematen definizio labur eta elemental hau, zeren ohartzen bainaiz Worcesterko **Apezpiku** noizbaitekoaren liburukote sendo bat badela, izenburutzat "Betiereko" hitzaren definizio partziala, Eskritura Santuen Bertsio Zilegian erabili denaren arabera duena. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere desgustua **apezpiku** -gutun batean jakin arazi zien eliztarreri. Herria

Herri-oldarrak eginkizun ofizial ziur baten errutinatik atera eta Milango **apezpiku** -aulkian jarri zuenean. Iñaki Mendiguren

Erdi Aroko Frantziako eliz mapan, adibidez, **apezpiku** -hirien mosaikoan Galia Togatako hiri-estatuen eta Galia Comatako kantonamenduen mugak bereiz ditzake historialariak. Iñaki Mendiguren

Eta ene ezin-ahantzizko Pannetier apeza, Büchenwaldeko eta Dachau-ko adiskidea, kalonje da orain, eta **apezpiku** -orde ez bada, bere nahitara da. Marzel Etxehandi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Toki-**apezpiku** bat, bere aulkia erromatar probintzia dioklezianiko baten erdigune zuena, Iñaki Mendiguren

5 ***apezpiku batzar***

Haurdunaldia eteteko pilularen aldeko kanpainak sustatzen jarraitzen badu Elizatik botako duela mehatxu egin dio Hondurasko **Apezpiku Batzarrak** Osasun ministroari. Berria - Gaiak

Batasunak eta Eusko Alkartasunak gogor kritikatu dute Espainiako **Apezpiku Batzarrak** aste honetan plazaratu duen testua. Berria - Euskal Herria

Ibeltzaren azken egunera arteko epea eman zioten Burundiko **Apezpiku Batzarreko** presidente Simon Ntamwana monsinoreari herrialdetik ateratzeko FNL Askapen Nazionaleko Indarretako gerrillari hutuek. Berria - Mundua

6 *apezpiku-hiri*

Erdi Aroko Frantziako eliz mapan, adibidez, **apezpiku-hirien** mosaikoan Galia Togatako hiri-estatuen eta Galia Comatako kantonamenduen mugak bereiz ditzake historialariak, bitartean artzapezpiku-hiriek lau augustotar probintzien -Narbonensis, Aquitania, Lugdunensis eta Belgica-ren- azpibanaketa dioklezianikoaren eskema gorde zutelarik. Iñaki Mendiguren

7 *apezpiku konferentzia* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Testuinguru honetan uste dugu bereziki deitoragarria dela Espainiako **Apezpiku Konferentziaren** Batzorde Iraunkorraren jarrera eta adierazpena. ETC-prentsa

"Elizaren, eta bereziki Kolonbiako Apezpikutzaren eta Hego Amerikako apezpikuen kontrako iraina da", esan zuen Pedro Rubiano kardinal eta Kolonbiako **Apezpiku Konferentziako** presidenteak. ETC-prentsa

Batzordeak aitortza sekretua pederastia kasuetarako ez aplikatzeko eskatu dio Australiako **apezpiku konferentziari**. ETC-prentsa

Orain arte ez du inork bitartekari lana egin, eta, azkenean, Nazio Batuen Erakundea eta **Apezpiku Konferentzia** arduratuko dira indigenen eta gobernuaren arteko bitartekari lanak egiteaz. ETC-prentsa

77ko maiatzean, Erregimenaren ondorengo lehen hauteskunde demokratikoen aurretik, Espainiako **Apezpiku-Konferentziak** dokumentu informatiboak banatu zituen, demokraziaren aurrean jarrera baikorra agertuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antonio Añoveros gotzainak Vaticanoren eta **apezpiku-konferentziaren** babes irmoa izan zuen eta gotzaina Espainiatik kanpora bidaliz gero, gobernu osoaren eskumikua beteko zela mehatxatu zuten. ETC-entziklopedia

Frantziako **apezpiku-konferentziako** presidentea izan zen 1975-1981 bitartean, eta Europako **apezpiku-konferentzien** arteko harreman-idazkaria 1971-1979 bitartean. ETC-entziklopedia

2010eko azaroaren 29an estreinatu zen, Espainiako **apezpiku-konferentziaren** jabetzakoa da (%51a) eta erakunde horren arabera sinesbide kristauak zabaltzea du helburu. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **akizeko apezpiku** (3); **apezpiku bat** (13); **apezpiku batek** (4); **apezpiku baten** (3); **apezpiku batzarrak** (3); **apezpiku berri** (5); **apezpiku edo** (6); **apezpiku hori** (4); **apezpiku izanen** (3); **apezpiku zenaren** (3); **baionako apezpiku** (11); **bi apezpiku** (7); **bilboko apezpiku** (3); **edo apezpiku** (4); **erromako apezpiku** (3); **espainiako apezpiku** (3); **gure apezpiku** (4); **hango apezpiku** (3); **lau apezpiku** (3); **vincent apezpiku** (3)
>
> **apezpikua bera** (4); **apezpikua da** (3); **apezpikua ere han** (3); **apezpikua ez** (4); **apezpikua hor izanen** (3); **apezpikua meza emaile** (3); **baionako apezpikua** (15); **donostiako apezpikua** (4); **gure apezpikua** (3); **iruñeko apezpikua** (4); **jaun apezpikua buru** (4); **moleres jaun apezpikua** (7); **tukumango apezpikua** (5); **uriarte apezpikua** (3); **zuen apezpikua** (4)
>
> **alberto apezpikuak** (5); **apezpikuak berak** (4); **apezpikuak bere** (8); **apezpikuak du** (3); **apezpikuak egin** (3); **apezpikuak emanik** (4); **apezpikuak erran** (4); **apezpikuak ez** (4); **apezpikuak igorri** (3); **apezpikuak mezu** (3); **apezpikuak saristatu** (3); **baionako apezpikuak** (15); **bilboko apezpikuak** (3); **gure apezpikuak** (3); **iruñeko apezpikuak** (4); **moleres apezpikuak** (4); **moleres jaun apezpikuak** (7); **portoko apezpikuak** (4); **uriarte donostiako apezpikuak** (4)
>
> **baionako apezpikuarekin** (4); **jaun apezpikuarekin** (4)
>
> **apezpikuaren eskutik** (5); **baionako apezpikuaren** (6); **jaun apezpikuaren inguruan** (5)
>
> **apezpikuen artean** (4); **apezpikuen biltzarra** (6); **espainiako apezpikuen batzarrak** (3); **espainiako apezpikuen batzarraren** (3)

---

apezpikuburu *iz* apezpikuen burua. ik **gotzainburu**.

Istanbulen turkiar lurretan, berek beste izenez deitzen duten sinodo gisa batean bildu dira ortodoxiako 42 Eliza buruzagi, herri eta Eliza hauetakoak: Konstantinopoli, Antiokia, Alexandria, Errusia, Errumania, Bulgaria, Serbia eta beste zenbait ttipiagotako patriarka **apezpikuburuak**. Herria

---

apezpikugai *iz* apezpiku izateko prestatzen ari dena.

Bere izebari lehenik zorretan gelditua, bazakien ere Jean Saint Pierre milafrangar **apezpikugaiari** ziola zor haundia, hunek baitzion erran euskara zinez ikasi behar zela, Euskal-Herrian nahi bazuen apez izan. Herria

---

apezpikugaitegi *iz*

Karlomagno eta haren lehen ondorengoak beldur ziren leku urrunetan jarriko zituztenak ez ote ziren erreboltatuko, eta pentsatu zuten otzantasun handiagoa aurkituko zutela elizgizonen artean; hortaz, **apezpikutegi** asko eraiki zituzten Alemanian, eta feudo handiak erantsi zizkieten. **Apezpikutegi** eta abadietarako hauteskundeez. Iñaki Iñurrieta

Elizak pobretuta zeudenez, erregeek utzi egin zituzten **apezpikutegietarako** eta beste eliz onuretarako hautatzea. Iñaki Iñurrieta

Borta guziak bortxatzen zituen, prefeturakoak, **apezpikutegikoak**, polizategikoak, auzitegikoak, herriko-etxekoak, bere mezuaren entzunarazteko eta behar zituen bultzaden ardiesteko. Michel Oronoz

---

apezpikugo *iz* apezpikutza.

Zorigaitzez Beltran Etxauzkoaren **apezpikugoak** badu bere ilundura, Euskal Herria 1609an joiten duten sorginkeriako auzi izigarriekin, orduan baita de Lancre kontseilaria igorria herrieri garbialdi bat eman dezan, Deabruaren meneko diren sorgin eta sorgintsa guzietarik. Michel Oronoz

---

apezpikutegi *iz* apezpikuaren egoitza.

Ikusia dugu Ameriketarako urrats guziak **Apezpikutegiak** eskaturik eta honekin esku-esku eginak dituela. Xipri Arbelbide

Apezpikuaren idazkari zen, gero, **apezpikutegiko** idazkari nagusi 29 urtetan, eta laster bikario nagusi, gazteegi apez zenbaiten ustez. Xipri Arbelbide

Ibiladi horien berri ematen zuen xeheki **apezpikutegiko** astekarian: [...]. Xipri Arbelbide

Baionako **apezpikutegiko** kantorean sartu nintzen ikasketak egiteko eta kantu gregorianoz elizkizunak apaintzeko, katedralean. Piarres Aintziart

Pepinek beste kapitular bat egin behar izan zuen, zeinen bidez onura haiek jaso zituztenak hamarren hori eta errenta onartzera behartu baitzituen, eta **apezpikutegiaren** edo monasterioaren etxeei sustengua ematera, hartutako ondasunak galtzeko zigorpean. Iñaki Iñurrieta

Diru hori **apezpikutegiari** eman nahi zion, bere misioneen obrarentzat, bainan baldintzak jarriz: katedraleko kalonje izenda zezaten Erroman egin akordioaren arabera, urtean 2.000 libera bizitzeko, eta ageri bat egin ziezaioten, dirua misionentzat emana zuela. Xipri Arbelbide

Apezpikutegi eta abadietarako hauteskundeez. Iñaki Iñurrieta

Behar dugu galdatu **apezpikutegitik**, parropia guzietan, aste buru oro, meza bat bederen izan dadin euskaraz proposatua. Herria

Eroslerik etzen biziki agertu eta eztabadak piztu ziren, nehork ez jakin xuxen nor zen egiazko jabea, gobernuak segurtatzen-eta 1838-an parropiaren gain utzia zuela, bainan bazterretik batzuk erraiten **apezpikutegiarena** zela izaitekotz edo beharbada herriarena. Herria

---

apezpikutu, apezpiku(tu), apezpikutzen *ipar* apezpiku bihurtzea.

Aitatxi ez zen inoiz baroitu, are gutiago **apezpikutu**. Aingeru Epaltza

Errege Jaunaren Epaile Nagusi batek, ene ustez eta, bere eskualdean gobernatzen dituen guztien aburuz, Espainiako zuhurrenetarik denak, nihoni erraten baitzidan, hona

heldu nintzelarik, ez dela apezpikurik, ez laster **apezpikutzea** itxaroten duen apezik, auzi horri interesatzen ez zaionik. Piarres Xarriton

---

apezpikutza *iz* apezpikuaren lanbidea eta kargua. ik **gotzaintza**.

Berari berez legokiokeen **Apezpikutza**, Arabakoa, faxisten eskuetan dago, gerraren ondorioz, eta berak ez du han egoterik. Edorta Jimenez

Apezpikutzak jarritako salaketaren berri ez duela izan adierazi du Urrestik. Berria - Euskal Herria

Lipar bateko ametsetatik errealitatera nakar **Apezpikutzako** gizon gazteak. Edorta Jimenez

Eta eskola emaiten ibili zen urte luzeetan, teologia eta erlijionea irakasten batik bat, Parisen aldi batez eta Baionako **Apezpikutzako** Kolejioan bertze aldi batez. Joan Mari Irigoien

Uda zen Gasteizko **Apezpikutzara** telefonoz jo nuenean. Edorta Jimenez

Zarauztik Erriberrira, Iruñeko **Apezpikutzaren** meneko lurretan gutik erran zezaketen gauza bera. Aingeru Epaltza

Inguruko kaleak asfaltatu gabe, umeak hemengo pilota jokoan, auto mailatuak nongura eta atzealdean turistak ibiltzeko bizikletak, **Apezpikutzaren** egoitzaren barrua beste mundu bat da. Edorta Jimenez

---

apezpikutze *iz* apezpiku bihurtzea.

Nihoni erraten baitzidan, hona heldu nintzelarik, ez dela apezpikurik, ez laster **apezpikutzea** itxaroten duen apezik, auzi horri interesatzen ez zaionik. Piarres Xarriton

---

apeztasun *iz ipar* apezaren lanbidea eta kargua.

Gauza miresgarria da **apeztasuna**. Herria

Hunek, bere itzulika guzien ondoan ez aintzinean, ez du **apeztasuna** ez erlisionea ohoratu baizik; hura baita ororen buru beharrena. Xipri Arbelbide

Badakit desordre hori sortzen dela **apeztasunak** dakarren aberastasunetik bainan ez dut oraino ikasi ordenan bizitzen. Menane Oxandabaratz

Ortziralean, **apeztasunaren** eguna. Herria

Gero Garazirat igorri zuen apezpikuak Donibaneko erretor nausi, hor apez xehe eta zinez langilea izan baitzen, ez jakin zer egin bere **apeztasunaren** mail guzietan eta bere jendearen zerbitzuan. Herria

Jean Etcheverry-k 50 urte bete ditu **apeztasunean**. Herria

Bera baino bi urte gazteago zuen hau Lafittek, biak urte gutiz egonak ziren elgarrekin Uztaritzeko semenarioan erakasle beren **apeztasuneko** lehen urteetan. Herria

Apeztasunez apaindu gizona, gizontasunez apaindu apeza, gure gaztetasunak zakarkeen beldur guzien ezabatzen lagundu gaituzu Gipuzkoako ateak idekiz, gure hizkuntzen desberdintasunak zuzenduz eta gure jakintza xumeak ezagutzen ez zituen hitzak erakatsiz, xumeki, goxoki eta omore onez beti. Herria

---

apezte *iz ipar* apez bihurtzea.

Ohartu nintzan, hameka urtetan, -ez ote Jainkoak argiturik?- Euskal-Herria salbatzeko bide hoberena: **apeztea** nukela. Herria

Xiprik pentsatzen du aterabide bakarra gizon ezkonduen **apeztea** dela, ekialdean Elizak onartzen duen bezala. Herria

Gaztaroko garra, Aljeriako gerla bortitza, **apeztea** duda muda guziak gainditurik, Afrika-Gaboneko egonaldia, Biarnoan frantses erakasle eta azkenean hain arrotz bilakatua zaion Euskal Herrirat itzultzea. Herria

Bazterrerat edo geroko utzi ditu gai minberatsuak: abortua, emazteen **apeztea**, apezen ezkontzea eta holako. Herria

Hor kausituko da ere hazpandar bi apez horien sahetsean Jean Landarretche lekondar apeza, bere **apeztearen** 50 garren urte betetze karietarat. Herria

---

apeztegi *(orobat **apeztei** g.er.) iz* apezak hezten diren etxea.

Maiatza zen. Hango erretorea zen orduan eta Santiagora zihoazen erromesentzat aterbe bat bazuen antolatua **apeztegian**. Piarres Aintziart

Frantsesek, beren Konbenzione-ko guduketan, erre ondoan gure eliza eta **apeztegia**, luzaidarrek nahi ukan zituzten arrazoinekin biak berriz eraiki edo altxatu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Arazo hauxe planteatu nion **apeztegiko** teologia irakasleari: Zer pentsatuko luke Jainkoak bere gorputza pozoituko bagenu tirano bat hiltzeko? Koldo Izagirre

---

apeztei ik **apeztegi**.

---

apeztu, apaz(tu), apezten da/du *ad ipar* apaiztu

Jan Batista, zortzigarren haurra, 1789an sortua, **apeztu** zen eta Aturrin egon irakasle. Xipri Arbelbide

Apeztu zen mila zortzi ehun eta zazpian eta igorri zuten Uztaritzera bikari (1807). Xipri Arbelbide

Rue du Bac delako Misionesten etxean bururatuko nituela ikasketak eta han berean **apeztuko**. Piarres Aintziart

Lacroix horrek zuen Arbelbide **apeztu**, eta Milafrangara izendatu lehenik, gero Hazparnera eta azkenik misionestegira. Xipri Arbelbide

Apeztu nahi nuen, naturalki, ebidentziaz, aitaren anaia misionest gaia, eta arreba Serora xuria heroi perfektuak zirelakotz enetzat. Piarres Aintziart

Elgarri atxikiak ziren bainan egun batez mutikoak salatu zion nahi zuela **apeztu**. Herria

Martin Lapeyre (père Damien) Azkainen sortua, (1942.12.04), **apeztua** eta Misionestetan sartua (1868.06.06). Xipri Arbelbide

Ondotik seminario handian sartu zen, 1867an **apeztua** izateko, ekaineko 15ean. Xipri Arbelbide

Bekan etortzen da bainan aldi huntan bazaukan arrazoin berezia zeren 50 urte baitu **apeztua** dela. Herria

24 urtetan **apeztua**, lau urteren buruko, 1858an, Luzaideko erretore edo bikario izendatu zuten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Rue du Bac delako Misionesten etxean bururatuko nituela ikasketak eta han berean **apeztuko**. Piarres Aintziart

San Andres katedralaren maldan autobusetik jaitsi zenean, Frantxua Gilenen ildotik **apeztuko** zelako ametsa zerabilkion gogoan dantzari. Itxaro Borda

25 urtetan **apezturik** bere bizi osoa Uztaritzeko eta Hazparneko ikastegietan iragan du salbu gerlako urteak. Herria

Apezturik, bertzeak bertze Elizondon erretor egon zen. Herria

Apeztu aitzin izan zira ere langile Euskal Herriko erresuma xutik egon zadin bere gain eta libro etsairik gabe. Herria

Pasaian eta Parisen eginik ikasketak, **apeztu** ondoan Baionan izan zen erakasle, azkenik semenario handian. Herria

Apeztu berri hartan, ez zuen izendapen ospetsu baten menturarik, baina bere kalifikazio onak ikusiz Baionan gelditzeko baimena bederen emanen ziotelakoan zegoen. Elena Touyarou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apeztu da (3); **apeztu nahi** (3); **apeztu ondoan** (3); **urte apeztu** (3); **urtetan apeztu zen** (3)

bere apeztearen (3)
apeztua zela (3); **urte apeztua** (4); **urtetan apeztua** (3)

---

apika *(ETCn **2.209** agerraldi) adlag* beharbada. ik **agian**.

Apika monotonoek kutsaturik, imajinatu zuten gizon oro bi gizon dela eta benetakoa bestea dela, zeruan dagoena. Juan Garzia
Apika ez zegoen ezer eta dena kasualitatea besterik ez zen izan. Joxemari Iturralde
Apika, gosaltzen ari dira Andrés eta Luis. Lourdes Oñederra
Apika, ume horrek beti egiten du lo horrela, argirik gabe lo egiteak beldurra ematen diolako. Mikel Hernandez Abaitua
Apika, hitzezko oroimenaz baizik ez zituen ezagutzen orain. Xabier Olarra
Apika lotsarengatik ez zian kontatu hori amak. Juan Garzia
Zauri sendaezina... Akaso ez zuen inor, ez aitarik ez amarik, ez seniderik, **apika** ez zuen nor maitaturik. Fernando Rey
Edonola ere, eta hau da **apika** ikuspegi honen ideia zentrala. Iñaki Heras
Nik zegokien jaiduraz entzuten nituen istorio zaharrok, **apika** ez hain miragarriak berez nola baitzen miragarri neure odolak asmatuak izatea. Juan Garzia
Eman banio, **apika** haren destinoa eta nirea zalapartatsu irtengo ziren bertan karriletatik, etorkizun elkarkide guztiz iragarrezin baterantz. Juan Garzia
Milanen bizi zirela (**apika** elkarrekin, **apika** etxe banatan), eta orain politikara emanak zeudela, faxismoaren kontrako borrokan. Fernando Rey
Maite zaituzke, **apika**, orain, eta orbanik eta makurbiderik gabea dateke, akasgabea, haren gogoa. Juan Garzia
Gauza hauek, **apika**, sinesten zailak dira, baina gertatu halaxe gertatu ziren. Fernando Rey
Berak ez zekien hori, edo, **apika**, bazekien eta ezkutatu egiten zuen. Aritz Gorrotxategi
Ez nuen ezer berezirik sentitu; takikardia txiki bat, **apika**, hasieran, baina ez indar berezirik, ezta inguratzen ninduten objektuen edo pertsonen pertzepzio xelebrerik ere. Iban Zaldua
Zuzenagoa da esatea, **apika**, faltsua baino sinpleegia dela aipatzen den erlazio hori, ñabardura asko baitira egin beharrekoak. Iñaki Heras
Izan ere idatzitakoa baino idatzitakoaz egiten den irakurketa baita, **apika**, kontua. Iñaki Heras
Luziarentzat Julio mutil atsegina zen, batzuetan nahiko dibertigarria, baina **apika**, bere gusturako, sinple samarra. Joxemari Iturralde
Halabeharra izango zen **apika**, edo bestela berriz nik garai hartan nuen begirada liluratzailea edota nire Citröen beltz are liluratzaileagoaren eragina. Bernardo Atxaga
Ulertzen zailagoak, asaldagarriagoak, eta aieru txarrekoak, **apika**, "lausotasun" aldi luzeak ziren. Xabier Olarra
Zauri sendaezina... Akaso ez zuen inor, ez aitarik ez amarik, ez seniderik, **apika** ez zuen nor maitaturik. Fernando Rey
Nire ustez, gauzak ongi egitea gustatzen zitzaiolako; ondoegi **apika**, aberatsen etxeetan egiten diren modura. Ramon Saizarbitoria
Ulertzen zailagoak, asaldagarriagoak, eta aieru txarrekoak, **apika**, "lausotasun" aldi luzeak ziren. Xabier Olarra
Eta bere burutazioaren sakonaz eta larriaz **apika** ongi jabetu gabe, hauxe erantsi omen du, hitzez hitz, eta Otsondoren agerian: [...]. Txillardegi
Ez ziren jada bakarrik eliza nagusiko kanpaiak danbaka ari, baizik eta halaberean Kristoren Odolekoak, Gurutze Berdekoak eta **apika** Santutegikoak. Juan Garzia
Baina, zergatik? **Apika** hizlaria nire aurrean ote dut? Askoren artean
Memoria historiko bat, esango genuke gaur **apika**; imajinario bat, mitologia bat. Joxe Azurmendi
Zigorrak ez du hobenduna hobetzen: larritasun geldo bat, zuhurtzia, mesfidantza eman diezaioke **apika**. Markos Zapiain
Baina zer da beharra? Eztabaida handia sortzen duen terminoa da, eta auzi honen funtsa, **apika**. Iñaki Heras
Informazio gehiegi emango zion, **apika**. Iban Zaldua
Don Alejandrok nahitasun berezia hartua zigun Fernández Irala eta bioi, zurikerian jarduten ez genion bakarrak ginelako **apika**. Juan Garzia
Haren begiradapean errudun sentitzeko aukera galdu dudalako, **apika**. Iban Zaldua
"Natalinari oparituko diot **apika**!". Fernando Rey
Baina, zergatik? **Apika** hizlaria nire aurrean ote dut? Askoren artean
Nora joan pentsatzen ari ginela Venezuelatik aldaketa baten albiste itxaropentsuak iritsi zitzaizkigunean **apika**? Pako Aristi
Emakumezkoaren literatura ezberdina delako, **apika**? Ana Urkiza
-Norbaiten bila **apika**? -zorrotz begiratu besteak. Migel Angel Mintegi
Ez al goaz aurrera ezerez infinitu batean herrari **apika**? Joxe Azurmendi
Nahastura bat, **apika**? Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
apika ez (7); **apika gure** (3); **apika nire** (3); **bai apika** (3); **baina apika** (4); **da apika** (7); **dira apika** (4); **du apika** (3); **duk apika** (3); **edo apika** (6); **ere apika** (3); **gehiago apika** (4); **izango zen apika** (4); **zuen apika** (7)

---

apikal *izond* punta itxurakoa.

"Goian", dio txostenak, "burua **apikala** da, inguru guztia landua du, eta gorputzetik bereizten da grabatuta dagoen marra zabal baten bidez". Berria - Kultura

---

apikari *iz* kontsonanteez mintzatuz, mihinaren puntan ahoskaten dena.

Azken batean, puntta horren apex latinezko izenetik datorren izena da **apikari**. Lourdes Oñederra

---

apikaritasun *iz* apikaria denaren nolakotasuna.

Duela gutxi arte, NAFek ez du **apikaritasuna** adierazteko ikurrik izan. Orain, txistukariaren azpiko DIAKRITIKO karratua (subscript square) proposatzen du lepokaritasuna adierazteko (s67), eta hankaz gorako zubitzat har litekeena (inverted subscript bridge) **apikaritasuna** adierazteko (s◡). Lourdes Oñederra
1993ko bertsioan, **apikaritasuna** adierazteko, ikur nagusiaren azpian zubi irauli itxurako diakritikoa jartzea proposatzen da. Lourdes Oñederra

---

apikultura *iz* erlezaintza.

Orduan, B-12k kanon bat behar genuela esan zuenean, hain zuzen, hasi ginen Kolko Mitxoletarekin gogoratzen, bera baitzen, gure artean, soziolinguistika, filatelia, matematika, sumo, eraikuntza, filologia, **apikultura**, psikologia, zinema, latina, enologia, zientzia, literatura, numismatika eta abar, hau da, zer edo zer, kanon bat zer izango zen ere barne, esaterako, eta gauzak, orokorrean, zekizkiena. Jon Alonso

---

apio 1 *iz* ginbaildunen familiako baratze landarea, hosto zatituak dituena, jateko ona *(Apium graveolens).*

Izeba Beatricek eserita segitzera behartzen ninduen eta azenario eta **apio** eta perrexila mozten zuen, moztu eta ahots apalean kantatzen zuen, beti doinu desberdinekin.

Fernando Rey

Apioa eta azenarioa erantsi; burruntzali bete saldaz busti; xerrak atzera zartaginean ipini, eta, azkenik, perrexila eta tomate puskak gehitu zizkion, Léak tomateei hazia kendu ondoren. Jon Muñoz

Gabrielek gozorik jaten ez zuenez, **apioa** utzi zioten berari. Irene Aldasoro

Karta luzatu dit: hasierakoetako bat aukeratzeko eskubidea dut: bost xerra txistor edo errefauak edo izkirak edo **apioa** saltsan, erretilu bat. Monika Etxebarria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikasle garaiko hiriraino narama **apio** usainak; gehiago oroitzen naiz tranbiaren hotsaz, bidelagun nuen neskaz baino, halako hiria aipatzen didatenetan. Anjel Lertxundi

Gaur bertan milaka **apio** aldaxka landatu ditut nire negutegietan eta hemendik aste batzuetara bilduko ditut. Berria - Harian

Kristalezko pegar bat, eta **apio** -zurtoin batzuk pegarrean, zutika sarturik. Irene Aldasoro

Eltzekarirako barazki sorta lotuak ere saltzen zituen: lau porru, hiru azenario, txiribi bat, bi arbi, bi **apio** hosto. Karlos Zabala

Mutilak galaiarena egin eta neska sotoetako bazter beltzen batera eramaten zuen, patata gordinak edo **apio** bihotzak hozkatzera, jatetxe bateko gela pribatuan egongo balira. Karlos Zabala

Urrunago, uraza, tipula, porru eta **apio** ildoek berunezko soldaduen desfile bat ematen zuten, denak lerrokadetan, soka bidez landaturik. Karlos Zabala

-Gerroarren lurraldean, erregea hil dakienean, gorpu osoa argizaritu, sabela ireki garbitu eta iraurbelar xehetuz eta lurringaiz gainera **apio** eta aneta haziz betea duelarik, berriz josi egiten diote. Patziku Perurena

Atzealdean, beste bederatzi iraulki orgak, beren aza eta ilar metak eramanez, beren orburu, uraza, **apio** eta porru pilak garraiatuz, geldo-geldo haren aldera zihoazela zirudien, ehortzi nahi balute bezala bere gosezko hilzorian janari haiek guztiak gainera jausirik. Karlos Zabala

Usain sarkorrak hedatzen ziren **apio** eta perrexil piletatik. Karlos Zabala

Gama etenik gabea, jarraia, **apio** eta porru sortetaraino iritsi eta bertan hil egiten zena. Karlos Zabala

Mutilak galaiarena egin eta neska sotoetako bazter beltzen batera eramaten zuen, patata gordinak edo **apio** bihotzak hozkatzera, jatetxe bateko gela pribatuan egongo balira bezala. Karlos Zabala

---

apioide *iz* perrezilaren familiako landarea.

Cannabisa da gehien hartzen denetakoa, anfetaminen, kokainaren eta beste **apioideen** aurretik. Berria - Gaiak

---

apiriku *iz* ataria, bereziki arkupekoa. ik **kalostrape**.

Handik egun gutxira, apirilaren 25ean, gaizki ez banago, elkartu egin ginen osaba-ilobak katedralaren aurreko **apirikuan**, Zubi-Berriaren kaleburuan. Txillardegi

---

apiril *(orobat **apirile** g.er. eta **apirill** g.er.)* **1** *iz* urteko laugarren hila.

Orain kontua da 1937ko **apiril** honetan Mundakako portuan direnei mundua behera etorri zaiela. Edorta Jimenez

Hala, **apiril** erdiko egun haietarik batean izan genuen kanoia jauregiaren aitzinean, bere numeroa grabaturik zuela: [...]. Joan Mari Irigoien

Badirudi, alegia, ezein haize ez dela on, eta **apiril** arte onena hantxe lehorrean egotea dela, horditzea, alkandora jokatzea dadoetara, eta izorra uztea portuko neskatoak. Juan Garzia

Apirilak dakar maiatz aurreko lora-botoien margo eta xarma betea...! Pello Zabala

Otsailak belarra, berak ekar eta berak ihar; / martxoak belarra harri-azpitik zelar; / **apirilak** larrea bete belar. Pello Zabala

2 (izenondoekin)

Apiril heze eta gris hau. Mattin Megadendan, **apiril** osoan, Maialen Van Loey-ren margo erakusketa, "Bamako" izenekoa, Philippe Darriere-n musikarekin. Jon Alonso

Claudinerekin bizitako **apiril** zoragarri hura baino ez nuen maletan sartu La Torrerako txangoan. Aritz Gorrotxategi

Apiril onik ez dagoeneko kontu hori ere egoki dator beste behin akordura ekartzea. Pello Zabala

Hasieran ez nuen gogoko, lar mistikoa aurkitzen nuen, lar sinbolikoa; baina nik gura nuena islatzen zuen, **apiril** iraultzaile bat, gizarte higatuaren hegaldia udabarrirantz." Artzaina eta nekazaria ongi eskarmentatuak ditugu **apiril** fidakaitzarekin. Koldo Izagirre

Martxo lehorra, **apiril** bustia. -Martxo haizetsu, **apiril** euritsu, maiatza gero eguzkitsu. Pello Zabala

Beraz, eta ontzat jo dugun **apiril** euritsuaren buruan, lehen aldaketa hatz txikietako azazkalena izan zen. Karlos Linazasoro

Ez dakidala zerk joan behar duen aurretik eta zerk atzetik, neure burua Gurutze Gorriaren parean autobusaren zain ikusten dudan **apiril** haizetsuak ala aitaren heriotzaren ekain itogarriak. Joseba Urteaga

Parisko kafetegi zaharreko garaiak oroituz, eta aurpegian sentitzen genituen tantak dastatuz, **apiril** ezberdinak eraikitzen genituen espaloi bustian. Aritz Gorrotxategi

3 (-en atzizkiarekin)

Apirilaren bata da, eta ez daki handik urtebetera Nafarroako Kutxaren irabaziak %7,4 ugalduko direnik eta Bill Gatesek O.M.E.ari azkenean 200 milioi ematea erabakiko duenik. Pako Aristi

Igandearekin egokituko da aurten **apirilaren** 23a, Unescok Liburuaren Nazioarteko Eguna izendaturik duena. Berria - Kultura

Noiz arte: **Apirilaren** 8a arte. Berria - Harian

Bonbardaketatik hiru egunetara izan zen atxiloketa hura, 1937ko **apirilaren** 29an. Juan Luis Zabala

1095ean berriz, Lyoneko artzapezpikuak **apirilaren** 11n utzi zuen bere hiria eta maiatzaren 12an Santiagon zen: Zer den bestenaz fedearen indarra! Piarres Aintziart

Apirilaren 8an sinatu zuten su-etena Gobernuak eta gerrillariek. Berria - Gaiak

Errepublikaren proklamazioa eta errege-familiaren ihesa gertatu ziren egunean, 1931ko **apirilaren** hamalauan, amona, beti bezala, Unión kaleko kontsultara joan zen, kaleko zurrumurruei kasu handirik egin gabe. Iban Zaldua

Hain ikuskizun deigarria ere ez zen jadanik: hiruzpalau egun-edo baziren kometa hura han goian zebilela, gutxienez **apirilaren** 26az geroztik, nahiz eta gau hartan bezain ikusgarri beharbada ez. Joxe Austin Arrieta

1968an hil zuten Martin Luther King, **apirilaren** 4an. Pello Salaburu

Apirilaren 28an, gauerditan, gure bagoi herronka Dachau-ko kontzentrazio zelaiaren aitzinean gelditzen da. Michel Oronoz

Egun hartan, **apirilaren** 9an, Agoizko epaitegiaren ingurua Guardia Zibilak hartuta zegoen erabat. Edurne Elizondo

Kapitulu berean, **apirilaren** 29an, Austriako ministro zen anai Bartolome aukeratu zuten Saxoniako ministro, lehen bozketan eta aho batez. Askoren artean

Baleako artxiboetan idatzia da 1706eko **apirilaren** 18an Herriko premuek, usaia zuten bezala, beren biltzar nagusia Anhauze elizako kalostrapean egin zutela.ZELESTINA LEONET: 1887ko **apirilaren** 6an jaio zen mundura, sortzez eta bizitzez aranoarrak ziren guraso Joxebenardo eta Joanengraxi Iparragirregandik. Michel Oronoz

Luzaiden egina 1854ko **apirilaren** 29an. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

1996. urteko **apirilaren** 6an, goizeko 07: 15ean, Itoizko urtegiko porlana garraiatzeko kableak moztu zituzten *Itoitzekin Elkartasuna* taldeko zortzi kidek. Edurne Elizondo

Oroitzen zen egun hartan, notarioak "gertakizunen eguna" esaten zion **apirilaren** 20an, norbaitek bere ondoan "kanpaiak isilduko balira, behintzat" esan zuela. Ramon Saizarbitoria

1937 hartako **apirilaren** 29an, Sevillako ABCk, iturri frankistak aipatuz, gazteleraz eman zuen eskribauen egia: [...]. Iñigo Aranbarri

Gutxienez, gaurtik **apirilaren** 15a arte. Pello Zabala

Apirilaren 16an Pauline Finca Vigían dago, Mary berriz Chicagon da. Edorta Jimenez

Pazkoa, azkarren jota, martxoaren 22an egokitu daiteke; eta beranduenera jota, **apirilaren** 25ean. Pello Zabala

Horiek ditu gogoan Unanuek 1996ko **apirilaren** 6ko ekintza hartaz. Berria - Euskal Herria

Oroitaraz dezakegu hala ere, 1566an, **apirilaren** 30eko gutun batez, Pio V.a aita saindu sainduak kendu zizkiola, Joanes Sosiondo gure apezpikuari, Baionako apezpikutegiak egundainotik bereak zeuzkan Gipuzkoako eta Nafarroako parrokia guztiak. Piarres Xarriton

Gogoan zituen 1882ko **apirilaren** 30eko egunsentiko laino australen formak. Juan Garzia

Hala ere, bizi-nahia gainditzen da, barreneko eutsi ezinezko indar bat bezala, etsimen guztiaren gainetik, 1944ko **apirilaren** 5eko oharrean dioen bezala: Bizirik jarraitu nahi dut, hil eta gero ere! Josu Zabaleta

Lizarrako San Pedro parrokiako erretorearekin (Don Ildefontso Etxeberria aspaldidanik ene laguna duk) antolatu diat bederatziurren bat **apirilaren** 16tik aurrera. Txillardegi

Apirilaren 26tik 27ra bitarteko gaua dut gogoan. Edorta Jimenez

Hilabetetsu lehenago eraikitako Barcaresko kontzentrazio barrutiaren ereduari jarraituz, 1939ko martxoan eraikitzen hasitako Gursekoa **apirilaren** azkenerako amaiturik dago. Jokin Urain

Apirilaren amaieran edo maiatzaren hasieran aurkeztuko dituzte, "eta espero dugu legebiltzarrek alderdi anitzen elkarrizketa foroa osatzeko erabakia hartzea", esan zuen Fernandezek. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Parlamentuko Autogobernu Lan Taldeak **apirilaren** 30a arte luzatu du bere lana. Berria - Euskal Herria

Zorioneko **apirilaren** azken egunotako esaerak hala dio: **Apirilaren** azkenian, ostroa haritz gainian. Pello Zabala

5 (-k deklinabide atzizkiarekin, datetan)

Igandean, **apirilak** 18, aratsaldeko 3etan hasiko da usaiako lotoa. Herria

Gazte Eguna ospatuko da larunbatean, **apirilak** 16, Beran. Herria

Bigarrena, asteazkenean, **apirilak** 27: Antoine Foucher txelo joilea eta Sophie Labandibar piano joilea. Herria

1995eko **apirilak** 8: Il-76 abioi bat Kamtchatkako penintsulan erorita 14 pertsona hil ziren. Berria - Mundua

Adibidez, 2006ko **apirilak** 6, gaurko berria da katalanek ezin dutela "nazional" hitza erabili beren erakundeei aplikatua. Joseba Zulaika

Apirilak 20: Azkaratek bere proposamena aurkeztu zien: Jaurlaritzaren proposamenaren eta euskaltegien proposamenaren arteko erdibidea. Berria - Harian

Apirilak hamahiru, ostirala. Joxemari Iturralde

Asteartea, 1942ko **apirilak** 27. Josu Zabaleta

Higiezin enpresaren kapitalaren %30 burtsaratuko da **apirilak** 7rako. Berria - Ekonomia

Mendeko datarik garrantzitsuena 1931ko **apirilak** 14koa dela bere ustez, Espainiaren eta Euskal Herriaren historian. Joxerra Garzia

Apirilak 15. 05: 15. Llumen etxeko garajearen sarreran. Antton Olano

Dena dela, nire urtebetetzea zenik (**apirilak** 29) aipatu ere ez nik. Joxe Austin Arrieta

Izan ere, behartuta egongo gara Montpellierren aurka (**apirilak** 28) irabaztera azken partida Tolosan jokatuko dugulako. Berria - Kirola

1999ko **apirilak** 7: Larsen B plaka erabat banandu zen eta izozmendi erraldoi bihurtu zen. Berria - Gaiak

Apirilak 26. 19: 55 Colom kalean. Antton Olano

Puntualak izan ziren hiru mamutoak **apirilak** 30 zituen ostiral hartan. Jon Arretxe

Musika eskolek gizartean zer eginkizun duten aztertuko dute lehenik (**apirilak** 6), eta egun duten eginkizun pedagogikoaz eta kudeaketaz hitz egingo dute ondoren **apirilak** 7). Berria - Harian

Bilboko Arriaga antzokiak ekoitzi eta Lluis Pasqualek zuzendu dituen Hamlet eta *La tempestad* antzezlanak (**apirilak** 27 eta 28), Animalarioren *Hamelin* (maiatzak 5) eta Sol Pico koreografoaren *La dona manca o barbi-superestar* (maiatzak 1) eskainiko ditu, besteak beste, Iruñeko Gaiarre antzokiak, eratu berri duen Beste begirada batzuk, beste eszena batzuk jaialdiaren barruan. Berria - Kultura

Data: **Apirilak** 4. Berria - Kultura

6 (-eko atzizkiarekin egunak-edo markatzeko)

ez nizuke esaten ahal naturaz haratagoko zer efektu bitxigatik, **apirileko** egunsentia bezain fresko zegoen ene oroimena, oroz oroitzen nintzen aldi berean; aro zoriontsu honetako detaile ñimiñoenak garbi, garden, eguzki berriak argituak bezala zitzaizkidan ageri. Koldo Izagirre

Baina **apirileko** goiz epel hartan, eta hego-haizeak ene aurpegia leun-leun ferekatzen zuelarik, gauza harrigarri bat gertatu zitzaidan. Txillardegi

Apirileko arratsalde bat zen, berandu samar. Koro Navarro

Apirileko gau hauetan, kaleetan zehar bakarrik zebilen bitartean, ezin zuen etxeorratz luze bat burutik kendu. Lopez de Arana

Apirileko egunik beroena, Valentzian izan zuten: 34.2 gradu, 1980ko apirilaren 1ean. Pello Zabala

1872an **apirileko** 6an, Bazko zahar bezperan. Xipri Arbelbide

Sevilla aldean, **apirileko** feria ospatzen behar zuten sasoian, 1641ean, apirilaren 20an juxtu, ikusgarrizko izotzak jo omen zuen hango paraje gehienetan. Pello Zabala

Eginkizun hori, nire ustez, **apirileko** erorikoak zabaldu zuen eztabaida politikoarekin zegoen lotuta. Rafa Egiguren

Apirileko eguraldi grisari aurre egiteko, kafe triste bat edatera gonbidatu zuen. Lutxo Egia

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hegoalderago, **apiril** goiz hartako eguzkitan, San Isidro eta San Justo hilerrietako orban berdeak, Getafeko bi dorreak eta Los Angeleseko muinotxoko baseliza. Josu Zabaleta

Apiril hilabete hau markatua izan da heriotze batekin Alduden. Herria

Apiril hasieran piztutako borroken ondorioz, 17 pertsona hil dira hirian. Berria - Mundua

Apiril hastean iragan da urteko biltzar garrantzitsuena, aurtengo aitzinkondua eztabadatua izan baita eta bozkatua. Herria

Belar lehor usain goiztiarrak **apiril** hastapenetan. Itxaro Borda

Kadimako diputatu Haim Ramonek esan zuen **apiril** erdialdean egingo ziola zin Olmertek lehen ministro karguari. Berria - Harian

Hezkuntza Sailak Berriari jakinarazi dionez, Eusko Legebiltzarrean eztabaidatu behar dute gaia eurek erabakia hartu aurretik; eztabaida **apiril** amaieran edo maiatza hasieran egingo omen da. Berria - Euskal Herria

Ramuntxo Camblong-ek hartzen du president kargua **apiril** ondarrean iraganen den biltzar nagusia arte. Herria

1720ko **apiril** bukaera edo maiatz hasierako gau batean, Gran-Saint Antoine itsasontzia Marsellara iritsi baino hogei bat egun lehenago, Cerdanyako erregeordeak (--...) amets bereziki latza izan du: [...]. Bernardo Atxaga

Apiril izena erantsi izan zaio, baita ere, garaitsu honetako amuarrain bati, izokinari juxtu: **apiril**-arrain deitu izan diote. Pello Zabala

Ez zuen jakin Baionako eta Kanboko hautetsiak kanporatuak izan eta, Maximilien Robespierre-k kudeatu "Les Montagnards" partiduaren aginduekin ados ziren beste batzuek ordezkatu zituztela, ez eta **apiril** hastapenean sortu Salbakuntza Publikorako Komitea Euskal Herrian eraginkor bihurtu zela. Elena Touyarou

Ligaxka eran, bertsolariak irratian lehiatu ziren 1962ko **apiril**-maiatz bitartean, eta entzuleek igorritako botoek erabaki zuten Txomin Garmendia izatea irabazle. Iñigo Aranbarri

Arantzazuko Seminarioko eskolen martxa moldatu genuen gehienbat, urtarrilean eskola saila emanez, eta itzultzean, **apiril**-maiatzetan gainerakoak osatzekotan. Pello Zabala

7 ***apiril-arrain***

Apiril izena erantsi izan zaio, baita ere, garaitsu honetako amuarrain bati, izokinari juxtu: **apiril-arrain** deitu izan diote. Pello Zabala

8 ***apirileko arrain*** *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Apirileko arraina apirilaren 1ean egiten den txantxa da, batez ere lagun, senide edo ezagunei, baina baita ere hedabidetan. ETC-entziklopedia

Askok **apirileko arraina** zela ere pentsatu zuen, adar jotze bat zela, baina erabakia biziki seriosa eta pentsatua zen noski." Zerk behartu zituen erabaki hori hartzera? ETC-

literatura, saiakera

Frantzian eta Italian "**apirileko arraina**" izaten omen da; Brasilen "dia da mentira"; Inglaterran eta Estatubatueta izeneko mundutxo horretan "april fool's day", apirileko tontoen eguna; Alemanian ezdakitzer, Japonen badakitzer... ETC-literatura, saiakera

Erotikaren eskuliburu sona handiko hura, Kamasutra euskaraz argitaratu berria zela azaldu zen **apirileko arraina** bezala (abenduaren 28an, oker ez banago) egunkari batean aspaldixko, Egin ote zenetz. ETC-literatura, saiakera

Ez gara txantxetan ari, nahiz eta apirilaren 1ean, Ipar Euskal Herri eta Frantziar Estatuan "**apirileko arrain** eguna" izan (Hego Euskal Herri eta Espainar Estatuan abenduaren 28ko inuzente egunaren parekoa). ETC-prentsa

Apirileko arraina urtarrilean? Frantziako lehen ministro Dominique de Villepinek osasun eta hezkuntza eskubideen maila berean jarriko du etxebizitza eskubidea. ETC-prentsa

Ez zen halakorik gertatu, **apirileko arraina** zen. ETC-prentsa

---

apirile ik **apiril**.

---

apirill ik **apiril**.

---

aplakatu, aplaka(tu), aplakatzen da/du *ad adkor* baretu, jabaldu, ematu.

Iritsi duk Garcia horren jauregira, berak nahi ahala guzia urratu, ebatsi eta sutu dik, eta han hasten duk Garcia jaunaren ahizpa, su galdei begira izuak hartua, kontu zaharrak berritzen, basati talde hura zerozer **aplakatuko** duelakoan: [...]. Patziku Perurena

Nola ez zitzaion gustatzen inor ezkontzerik, greziarrek Maia jainkotxar hau **aplakatzeko**, elorrizko bost zuzi zeramazkioten tenplura, elorri-lorez apainduta, baina beti maiatza baino lehen. Pello Zabala

---

aplakatze *iz* baretzea, jabaltzea, ematzea.

Urte batzuetan, hotz-beroaren **aplakatze** hau, xuabe, koskarik gabe egingo da, eguratsa eta airea baketsu, zirkinik gabe dabiltzanean, natural doanean eguraldi irailekoa. Pello Zabala

---

aplasia *iz* medikuntzan, gorputzeko ehun edo organo baten garapenik eza.

Aipaturiko txostenak dio, oraingoz, transplante autologoaren indikazio bakarra helduen **aplasia** (kimioterapiaren zein radioterapiaren ondoriozko gaitza) sendatzeko dela; baina, **aplasiarako** transplante mota hori ez da derrigor gaixoaren zilbor-hesteko zelulekin egin behar, nahikoa baita haren odol periferikoaren ama-zelulak erabiltzea. Berria - Gaiak

---

aplasiko *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi; soilik **anemia aplasiko** hitz elkarketan erabiltzen da)*.

1 ***anemia aplasiko***

Anemia aplasikoa zen, pilotari gazteak inoiz izandako kontrariorik gogorrena. ETC-prentsa

Curie 1934 hasieran joan zen azken aldiz Poloniara. Hilabete batzuk geroago, 1934ko uztailaren 4an, Passyko Sancellemozeko erietxean zendu zen, **anemia aplasiko** baten ondorioz. Uste da erradiazioaren esposizio luzeetatik kutsatuta zegoela. ETC-entziklopedia

---

aplikabide *iz* aplikatzeko bidea.

Eta biek dute **aplikabiderik**: hark deliberamenduetan, honek erretolikan. Esteban Antxustegi

---

aplikaezin *izond* ezin aplikatuzkoa.

Kasu askotan hizkuntzalaritza diakronikoa lantzeko modu hau ez da nahikoa izaten edo **aplikaezina** izan ohi da. Isabel Arrigain

Alegia, ekimen bat politikoki **aplikaezina** izateak egiten duela ekimena teknikoki **aplikaezin**. Iñaki Heras

Baliteke irakurleak pentsatzea literatur berpizkundeei buruzko gure oharrak orain arte bereziki **aplikaezinak** direla bere buruan lehen mailan dagoen literatur berpizkundeari: [...]. Iñaki Mendiguren

---

aplikagarri *izond* aplika daitekeena.

Zalantza bat geratuko da behintzat beti laborategietan lortutako emaitzei buruz: ea zenbateraino diren **aplikagarri** eguneroko pertzepzio "normalerako". Josu Zabaleta

Arte enpiriko bat da hori, berdin-berdin **aplikagarri** zaldi eta behiei zein gizakiei. Juan Garzia

Kontratuez hitz egiterakoan, kontratu guztiei **aplikagarri** zaizkien zuzenbide naturalaren oinarriak garatu ditugu lehendabizi. Andres Urrutia

Eta orobat **aplikagarri** da hori adigairik funtsezkoenetan: denboraren, espazioaren eta kausalitatearen nozioetan. Juan Garzia

Bada Tarskiren egiaren kontzepzio semantikoa hizkuntza naturalen eremuan **aplikagarri** egin nahi izan duenik; programa davidsoniarra da saiakerarik garrantzitsuenetakoa. Askoren artean

Baina batasun diskurtsibo hau, bestalde, homogeneoa eta modu uniformean **aplikagarria** al da? Xabier Arregi

Izan ere, teoria berri batzuk iradoki dute Erlatibitatearen Teoria ez dela beti **aplikagarria**. Berria - Gaiak

Idatzizkoan zenbateraino da **aplikagarria** egokitasuna? Berria - Euskal Herria

Arrazoimen honek kausalitatea duela edo, gutxienez, guk bertan horrelakoa errepresentatzen dugula, praktikoa den orotan indar **aplikagarriei** erregela gisa ematen diegun inperatibotik abiatuta argitzen da. Ibon Uribarri

Erromatarren lege zibilak ez dira beste edozein lege zibil baino **aplikagarriagoak**; haiek ere ez zituzten aplikatu erregeak juzgatu zituztenean; eta erregeak juzgatzeko erabili zituzten arauak hain higuingarriak ziren, non ez baitira inola ere berpiztu behar. Iñaki Iñurrieta

---

aplikagarritasun *(corpusean ez dago; ETCn **141** agerraldi)* *iz* aplika daitekeenaren nolakotasuna.

Argi zegoen, izan ere, amerikar izenak ez zuela gehiago **aplikagarritasunik** haien kasuan; xaharraren gelan eman nituen hamar minutuetan konturatu nintzen horretaz. ETC-literatura, saiakera

Pentsamendu honen oihartzuna liburu honetako 87 or. orrialdean agertzen du, baita ere dioenean ezin dela egon egiantzaren nozioaren '**aplikagarritasunerako** irizpiderik". ETC-literatura, saiakera

Horren ondorioz, gaur egun kasu guztietarako balio duela eta unibertsala dela onartzen den arren, agian, egunen batean, haren balioa mugatu egin daiteke -hain zuzen ere, fisika nuklearrean susmatu izan da haren **aplikagarritasunak** mugak dituela- eta betiereko higiduraren arazoa bat-batean benetako arazo bihurtu. ETC-literatura, saiakera

Datu gehiago lortu eta teknika hobetutakoan, Sumner ohartu zen gene anizkoitzaren hipotesia egokia zela bere datuak azaltzeko; egia esan, hipotesi horren **aplikagarritasunaren** adibide garbia da Sumnerren lana. ETC-literatura, saiakera

Newtonek berak eta, batik bat, bere zientziaren erabilgarritasun eta **aplikagarritasunak** ematen diote Kanti ziurtasuna. ETC-literatura, saiakera

Askotariko zelula amak behar ditugu hainbat gaixotasun osatzeko zer **aplikagarritasun** izan dezaketen osoki ulertzeko". ETC-prentsa

Bushek bilerak egin ditu azkenaldian Segurtasun Nazionaleko aholkulari Condoleezza Ricerekin Genevako Itunaren **aplikagarritasunaz** eta ondorio legalez aritzeko. ETC-prentsa

Ikertzaileek, berriz, euren ikerketen **aplikagarritasuna** hobeto ezagutu ahalko dute. ETC-prentsa

Utzi diezaiogun Bolivia, Kuba, Irlanda, Kosovo eta gainerako iraultzak aztertu eta euskal **aplikagarritasuna** bilatzeari. ETC-prentsa

Gazteak behar du jakin, etorkizuneko **aplikagarritasunaz** aparte, badirela mundua ulertzeko modu desberdinak, eta modu horiek komunitatea, lana, bizitza eta bere jarduna interpretatzeko beste aukera batzuk ematen diotela. ETC-prentsa

"Inter partes", "aldeen artean" esan nahi duen esapide lokuzio latindar bat da, zuzenbidean, arau, ekintza juridiko edo kontratu baten **aplikagarritasunari** erreferentzia egiteko. ETC-entziklopedia

Modelo organismoak ikertzearen kostuak, mantentzeak eta emaitzen **aplikagarritasun** konplexuak, beste metodo batzuk sortzea eragin du. Zelulen kulturak eta in vitro ikerketek esaterako, zelula biziaren fisiologia mantentzen dute eta ez dute animalien sakrifiziorik eskatzen. ETC-entziklopedia

---

aplikamen *iz* aplikapena.

Bat da legea eta beste bat haren plazaratzeko **aplikamenak**, dekretu apaintze eta beste. Herria

Ikusi eta konzeptu horrek daraman diru zama (182 milioi euro), hemengo hautetsi guziak alde agertu dira, eta **aplikamena** baderamate batera. Herria

---

aplikapen *iz* aplikatzea.

Biziki zorrotzak ziren eskatzen zituzten baldintzen **aplikapenari** buruz! Ramuntxo Etxeberri

Zigor legearen **aplikapenaz** arduratzen da epai mahai hori. Herria

Martine Mailfert LCRko hautagaiaren iritziz, kontrol zorrotzagoak behar dira legearen **aplikapenean**. Berria - Euskal Herria

Gogoetatu 35 orenen **aplikapenaren** inguruan. Herria

Garrantzi gutxikoa da hatsapen etimologikoaren **aplikapena** zuzena den edo ez: idazkera etimologikoaren printzipioa bera da okerra. Isabel Arrigain

Inkesta hunen emaitzak 2005eko larrazkenean zabalduko dira, ondotik **aplikapen** konkretuak bidean ezarriz. Herria

Belgikar abokat batek nahi baitu hemen plantatu, ihardetsi diote Frantses estatuak ez duela **aplikapen** dekreturik hartu oraino. Herria

Filipek delibero horrez dei egin ondoan, dei auzia 2004eko azaroaren 05ean agitü zen eta azaroaren 19an jakinarazi züan erabakian, gaztigüen **aplikapenen** batzorde nazionalak jüjeek hartü lehen deliberoa süstatü züan, Filiperen baldintzapeko libratzeari üko eginez. Herria

Zazpigarren eta azken kapituluak aipatzen ditu konbenio horren **aplikapen** eremuak. Herria

---

aplikarazi, aplikaraz(i), aplikarazten du *ad* aplikatzera behartu.

Deitoragarria da, legegileek ez-legezkoak ziren alderdien finantzakerei amaiera bat ematea erabakitzen zuten unean bertan, Juppe jaunak ez zitzan bere alderdi propioari **aplikarazi**, arau hauen bozkazale izan zelarik, aldiz, bera. Berria - Mundua

Ekologiaren ezagutza **aplikarazi** nahi duen mugimendu bakezalea da ekologismoa. Berria - Gaiak

Konzertazione on baten bidez, halako oreka edo ekilibrio bat nahi lukete bultzatu eta **aplikarazi**. Herria

Beraz, Angeluko Herriko Etxeko buruzagietan ere ez da aski kemenik agertu erabaki horien **aplikarazteko**. Herria

---

aplikatu, aplika(tu), aplikatzen **1** ezarri; kasu berezi bati egokitu.

Epidurala **aplikatzeko**, ez da utero lepoa dilatatu arte zain egon behar. Berria - Gaiak

Ezagutza huts honen erabilera, ordea, honetan funtsatzen da bere baldintza gisa: guri begiespenean objektuak emanak izatea, ezagutza hauei **aplikatu** ahal izateko. Ibon Uribarri

Metafora horren arabera ulertu behar da hitz hori Jainkoari **aplikatzen** zaion guztietan, adibidez: [...]. Xabier Kintana

Kategoriak agerpen gisa kontsideratzen ez diren objektuei **aplikatu** nahi badizkiegu, orduan sentsuzkoa ez den beste begiespena jarri beharko genuke oinarrian, eta hainbestez, objektua noumenoa litzateke esanahi positiboan. Ibon Uribarri

Generoen printzipio logikoak, beraz, transzendentala den beste bat aurresuposatzen du, baldin eta izadiari **aplikatu** behar bazaio (izadiaz, hemen, eman ahal zaizkigun objektuak ulertzen ditut). Ibon Uribarri

Zelling Harrisek nozio hori garatu eta diskurtsoaren azterketari **aplikatu** zion berrogeiko urteetan. Itziar Laka

Ideia hori artearen filosofiari **aplikatu** zioten filosofoek XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadan. Askoren artean

"Gauza bakarra eskatzen dugu: Giza ikerketetan **aplikatzen** diren irizpide berberak hartzea kontuan animaliekin egiten diren esperimentuetan. Berria - Gaiak

Filosofia transzendentalak, ordea, bereizgarri hau du: adigai hutsean emandako erregela erakusteaz gain (edo hobeto, erregelentzako baldintza orokorraz gain), aldi berean, *a priori* erakuts dezakeela hura zein kasutan **aplikatu** behar den. Ibon Uribarri

Zura, berriz, gogorra da tentsioarekiko, baina ahula konpresioarekiko, batez ere hariaren norabidean **aplikatzen** bada indarra. Irene Aldasoro

Zergatik ez dugu hori literaturara **aplikatzen**? Berria - Kultura

Emozio hori izan ez dutenek, edota, izanda ere, euren nortasunera **aplikatu** ez dutenek, definitu gabeko bizitza bat eramango dute, orokortasunaren epelean gordea. Pako Aristi

Gogamenaren teoriarako prestakuntza-sarrera, haren orokortasuna, osotasuna eta mamia kontuan izanik eta gizarte-produktibitatearen adarkatze bikoitzaren jatorri organikoen ulerkuntzara **aplikaturik**. Jose Morales

Bi hormen tartean zeharkako beste batzuk eraikiko dira: kanpoko eta barruko zimenduak elkartuko dituzte eta orrazi moduan edota zerra-hortzen formarekin egindakoak; hori horrela egiten bada, orduan lurraren pisu izugarria zati txikitan banatuko da, eta pisu guztia ez denez batera **aplikatuko**, zimenduetako hormek ez dute lehertzeko arriskurik izango. Santiago Iruretagoiena

Ingurumena babesteko, estatuek arretaren irizpidea beren gaitasunen arabera **aplikatu** beharko dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Autodeterminazio eskubidea **aplikatzea** "ezinezkoa" dela esan dio Rojok Ibarretxeri. Berria - Euskal Herria

-Marco Polo kodea **aplikatuko** diogu? Harkaitz Cano

Horrelako neurririk ez da inoiz **aplikatu** inon. Iñaki Heras

Pollyren esaldia errepikatu zuen, bere buruari **aplikatzen** ziola: [...]. Irene Aldasoro

Errepresentazio-era hauek ez dute adierazten substantziaren kategoria, edo kausarena, izan ere, hauek jadanik sentsuzko begiespenari **aplikatutako** pentsatzearen (juzgatzearen) funtzio haiek dira, eta begiespen hau beharrezkoa litzateke, noski, ni neu ezagutu nahiko banintz. Ibon Uribarri

Hartu dudan eskarmentua ezinduen kirolean **aplikatzea** gustatuko litzaidake, nik ikasi dudana besteei eman. Berria - Kirola

Izan ere, jakingo balitz baten batek ikusi zuela Marie, eman dezagun, astelehenean, edo astertean, asko murriztuko zen bitarte hori, eta, kazetariaren beraren arrazoibidea **aplikatuz**, erruz gutxiagotuko ziren gorpua grisettearena izateko probabilitateak. Koro Navarro

Objektu baten eta haren "irudiaren" arteko erlazioa optika geometrikoaren legeak **aplikatuz** kalkula daiteke. Josu Zabaleta

Hori, jakina, buruarekin argi jokatuz lortzen da eta ez arauak **aplikatuz** soilik. Santiago Iruretagoiena

Kolomaren beheko aldeari **aplikatutako** diametroa hartuz, sei aldiz eman zioten neurri hori altuerari, kapitela ere barne. Santiago Iruretagoiena

Abrahanen parabolaz aritzea, eta hau militarismoari **aplikatzea**, salbuespen egoeraz aritzea da azken batean. Joseba Zulaika

Alderdien Legea ez **aplikatzeari** uko egin diote EAJk, EAk eta Ebk. Berria - Harian

Adolf bera arduratu zen komedianteari Marco Polo kodea **aplikatzeaz**. Harkaitz Cano

Irekieraren hatsapen bakarretik ateratzen diren ondorioak, ezin **aplikatu** dira kasu erreal guztietan, batere salbuespenik gabe. Isabel Arrigain

Kategorien oinarrian datzan kontzientziaren batasuna hemen subjektuaren begiespentzat hartzen da, hau objektua den aldetik, eta substantziaren kategoria **aplikatzen** zaio. Ibon Uribarri

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Nola **aplikatzen** da boterearen inguruko teoria hori Euskal Herriaren egoeran? Berria - Euskal Herria

1902tik harat Combes-ek kongregazioen lege hori gogorki **aplikatzen** du, eta izateko baimena eskatzen duten kongregazio gutiz gehienei, eza ematen. Xipri Arbelbide

Euskal presoen espetxealdia ahalik eta gehien luzatzearren, espetxe onurak banaka **aplikatzea** erabaki du Espainiako Auzitegi Gorenak. Berria - Euskal Herria

PSOEri eskatzen diogu, beste lege askorekin egin duen bezala, Alderdien Legea malgutasunez **aplikatzeko**. Berria - Euskal Herria

Irudi artistikoez gogoeta eginez, irudian psikologikoki **aplikatzeko** bi modu kontrajartzen ditu Gombrichek (1965): (ber-) ezagutza eta oroitzapena. Josu Zabaleta

Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentrala desegitea, espetxeen gaineko eskumena EAEko Gobernuaren esku uztea eta badaezpadako espetxeratzea arbitrarioki **aplikatzearekin** amaitzea aipatu zituen. Berria - Euskal Herria

Salbuespena sistematikoki **aplikatzen** da. Berria - Euskal Herria

Estrategia hori zorrotz **aplikatu** zuen NDFk, baina alde txar bat zuen, jakina, herrialde zordunen hazkundea etetea hain zuzen. Koro Navarro

Saiakera arrakastatsua izan da, baina eskala handian **aplikatzeko** zaila da, zelulen iturria mugatua baita oso eta gaixoak asko. Berria - Gaiak

Azken baldintza hori zentzu hertsian **aplikatuko** balitz ezin esan genezake, adibidez, Gottfriend Wihelm Leibniz edo Immanuel Kant, Filosofia Unibertsitate germanikoetan sartzea ahalbidetu zutenak, pentsalari alemanak direnik, zeren latinez edota frantsesez idatzi baitzuten eta irakaskuntzan ere halaxe aritu baitziren, egungo alemaniar lurraldeetatik aski urruti gainera. Askoren artean

Legea zorroztasunik handienaz **aplikatuko** dut bi lapur hauen gainean. Lopez de Arana

Ondoren, hitz bi hauek metaforaz **aplikatu** zaizkie duintasunari eta handitasunari, eta, horrela, gizon baten maila beheratua izan denean y-rad esaten da, eta haren duintasuna mailaz goratua denean, aldiz, '-l-h. Xabier Kintana

3 (era burutua izenondo gisa)

Aterpea oraino argitan dago, baina erromes gehienak ohean daude, batzuk irakurtzen, besteak ja loan sartuak, batto korroka **aplikatu** batez artatzen bezala dela. Piarres Aintziart

Determinismo teknologikoaren tesiaren onarpenak bat egiten du, oro har, berrikuntza teknologikoaren eredu linealaren tesiarekin (hots, teknologia zientzia **aplikatu** soila dela defendatzen duen tesiarekin). Askoren artean

Logika orokorra, hortaz, Logika hutsa edo **aplikatua** da. Ibon Uribarri

Oroitarazten zioten ezinbestekoa zela aurrerantzean ere unibertsitateei estatu federalak ematen zizkien laguntzak mantentzea eta handitzea ikerkuntza (oinarrizkoa nahiz **aplikatua**) egiten segitzeko, herriaren etorkizuna bera kolokan zegoelako bestela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Filosofia morala hiru esparru nagusitan bana daiteke: teoria etikoak (edo etika arauemailea edo normatiboa), etika **aplikatua** (edo etika praktikoa) eta metaetika. Askoren artean

Guztizko isolamenduan bizi beharko dudala pentsatu dut, psikiatria **aplikatuaren** akuria izanen naizela. Koldo Izagirre

Bertan adierazitakoari jarraituz, etika **aplikatuaren** esparrua aztertuko da, eta azalpena esparru horren adibide paradigmatiko batera murriztuko da (eutanasiaren auzia). Askoren artean

Jakintza mota desberdinak eta ikerkuntza mota maila desberdinekoak (oinarrizkoak, estrategiazko ikerkuntza, ikerkuntza **aplikatua**, etab., anitzetan elkarren arteko mugak zehaztea gauza erraza ez bada ere). Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eguneroko bizitzan gure bizimodua hobetzen duten tresna horiek ez dira nahitaez ikasketa praktikoen eta **aplikatuen** emaitza. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

4 ***hizkuntzalaritza aplikatu***

Juan Kruz Igerabideren (Aduna, 1956) Mailu isila/Martillo silencioso poema liburuaren eta Javi Cilleroren (Bilbo, 1961) Agur, Hollywood/Hollywood me mata narrazio bildumaren euskarazko eta gaztelaniazko edizio elebiduna kaleratu du Atenea **Hizkuntzalaritza Aplikatuko** Zentroak, Euskal Biblioteka Elebiduna sailaren barruan. Berria - Kultura

5 ***mekanika aplikatu***

Komeni da gogoratzea, aldiz, lehenengo zazpi liburu "arkitektonikoen" ondoan, beste hiru azkenekoetan ere Errepublikaren amaiera garaiko ingeniari erromatar baten jardueraren alderdi guztiz definituak jasotzen direla modu erabat koherentean (hidraulika, kosmografia eta astrologia eta machinatio deitua, hau da, **mekanika aplikatua** eta makina zibilen nahiz militarren eraikuntza), eta anakronismo larria izango litzatekeela liburu horiek beste aurrekoen eskrezentzia huts eta apenas justifikatu bezala hartzea. Santiago Iruretagoiena

6 ***probabilitate aplikatu*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi)*

Probabilitate aplikatuan, urtebetetzeen ebazkizunak, bere bertsio arruntean, jende multzo batean, gutxienez bi pertsonak urtebetetze egun bera izateko probabilitatea aztertzen du. ETC-entziklopedia

7 ***zientzia aplikatu***

Lehenengo galderari dagokionez, esan beharra dago, tradizionalki teknologia **zientzia aplikatu** gisa ikusia izan dela. Askoren artean

Determinismo teknologikoaren tesiaren onarpenak bat egiten du, oro har, berrikuntza teknologikoaren eredu linealaren tesiarekin (hots, teknologia **zientzia aplikatu** soila dela defendatzen duen tesiarekin). Askoren artean

Psikologia bezalako arte edo **zientzia aplikatuak** zientzietan oinarritzen dira. Jenaro Garate

Lan horien artean azpimarratzekoak dira Euskera aldizkarian argitaratutako artikuluak eta **zientzia aplikatuari** buruz ateratakoak, besteak beste, baina euskalki guztien aditz laguntzaileen morfologia osoa ikertu zuelako izan da Pedro Irizar ezaguna. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aplikatu ahal izango (4); **aplikatu ahal izateko** (8); **aplikatu behar da** (4); **aplikatu behar diren** (4); **aplikatu beharko** (7); **aplikatu beharreko** (8); **aplikatu besterik** (3); **aplikatu den** (4); **aplikatu egin** (4); **aplikatu ere** (3); **aplikatu ezin** (4); **aplikatu nahi** (14); **aplikatu zen** (5); **aplikatu zieten** (3); **aplikatu zion** (5); **aplikatu zioten** (4); **aplikatu ziotenean** (3); **aplikatu zituzten** (5); **aplikatu zuen** (4); **aplikatu zuten** (3); **bera aplikatu** (3); **bermatzeko aplikatu behar** (3); **bertan aplikatu** (3); **ere aplikatu** (12); **guztietan aplikatu** (3); **hori aplikatu** (5); **horiek aplikatu** (4); **inoiz aplikatu ez** (3); **legea aplikatu** (3); **legeak aplikatu** (4); **nola aplikatu** (4); **polo kodea aplikatu** (3); **sistema aplikatu** (3); **zientzia aplikatu** (3)

aplika daiteke (6); **aplika daitekeen** (4); **aplika daitezkeen** (5); **aplika dakiekeen** (3); **aplika dakioke** (5); **aplika ditzala** (4); **erraz aplika** (3); **guztiei aplika** (3); **nola aplika** (3)

aplikatua edo (3); **etika aplikatua** (3); **ikerkuntza aplikatua** (5); **logika aplikatua** (3)

etika aplikatuan (3)

etika aplikatuaren (4)

aplikatuko balitz (3); **aplikatuko da** (5); **aplikatuko den** (3); **aplikatuko direla** (3); **aplikatuko dituzte** (3); **aplikatuko dute** (4); **bakoitzari aplikatuko** (3); **ekonomia aplikatuko** (3)

artikulua aplikatuta (4)

aplikatuz gero (14)

aplikatzea da (4); **aplikatzea erabaki** (5); **eskubidea aplikatzea** (3); **ez aplikatzea** (9); **hori aplikatzea** (4); **soilik aplikatzea** (3); **zigor bakoitzari aplikatzea** (3)

agerpenei aplikatzean (3)

euskarari aplikatzearen ebaluazioa (3)

aplikatzeari uko (3)

aplikatzeko aukera (3); **aplikatzeko eskatu zuen** (5); **aplikatzeko modukoak** (3); **artikulua aplikatzeko eskatu** (3); **ez aplikatzeko** (5); **hori aplikatzeko** (4); **legea aplikatzeko** (5)

aplikatzen ahal (3); **aplikatzen ari** (6); **aplikatzen baldin** (4); **aplikatzen da** (13); **aplikatzen dira** (3); **aplikatzen diren** (9); **aplikatzen ditu** (3); **aplikatzen dituzten** (4); **aplikatzen zaie** (4); **aplikatzen zaien** (5); **aplikatzen zaienean** (3); **aplikatzen zaio** (9); **aplikatzen zaionean** (4); **aplikatzen zen** (3); **aplikatzen zitzaien** (3); **da aplikatzen** (4); **ere aplikatzen** (5); **ez dela aplikatzen** (3); **hori aplikatzen** (6); **jainkoari aplikatzen zaion** (3); **legea aplikatzen** (4); **nola aplikatzen den** (3); **politika aplikatzen** (3)

---

aplikazio 1 *iz* aplikatzea; kasu berezi bati egokitzea.

Aplikazio hori XML hizkuntzan oinarritutako programa da, eta web zerbitzuak sortzeko balio du. Berria - Euskal Herria

Batasunaren aburuz, Azkarateren kasuan "euskal presoen kolektiboa suntsitzeko eraikitako politika baten **aplikazioa**" ikusten du. Berria - Euskal Herria

Magistratu eta juriskontsultoei dagokie, legearen izpiritu orokorraz beterik, haren **aplikazioa** zuzentzea. Andres Urrutia

Oinarrizko giza eskubideen **aplikazioa** industria multinazional batean esku uzteko ideian bada zerbait orwelianoa. Iñaki Heras

Al-Jauarrek zehaztu zuen zigor horren **aplikazioa** baldintza batzuen menpe egongo dela. Berria - Mundua

Diotenez, aurkikuntza honen **aplikazioak** oso handiak izango dira etorkizunean, uztak handitzeko eta elikadura hobetzeko. Pello Salaburu

Gogoratzea komeni da teoria batek azalpen maila ezberdinak (oinarriak eta metodologiak), teorien bitarteko aspektuak, euron deribazioak eta **aplikazioak** dauzkala beti. Xabier Amuriza

Gaur egun, Microsoften Windows XP **aplikazioak** ere antzerako aukerak ematen die ikusmen arazoak pairatzen dituztenei. Berria - Euskal Herria

Oinarrizko ikerkuntza eta **aplikazioak** bereizten dituena zera da: **aplikazioen** kasuan badakigula zer aurkituko dugun, eta bestean, berriz, arrastorik ere ez dugula. Juan Garzia

1953. urterako, erabat galdua nuen ebaluazio-prozedura taxonomikoak formulatzeko itxaropena, eta gramatika sortzailearen arazoetan jarri nuen arreta guztia, hala teorian nola **aplikazioan**. Itziar Laka

Halako kasuetan ere, arriskua, halakorik izatekotan, aldian aldiko ezaguera berriaren **aplikazioan** legoke funtsean, ez ezagueran berean. Juan Garzia

Arrazoimen praktikoak puntu goren hau lortu duenean, hots, jatorrizko zerizan baten adigaia ongi goren gisa, orduan ez du pentsatu behar bere **aplikazioaren** baldintza enpiriko oro gainditu denik eta objektu berrien ezagutza zuzenera igo denik. Ibon Uribarri

Internetek negozioetan dituen **aplikazioei** buruzko praktika eta ezagutzen topagune izatea da Kongresuaren xedea. Berria - Ekonomia

Horrez gain, Windows Media Player (WMP) multimedia **aplikaziorik** gabeko bertsioa salgai jartzera derrigortu zuen. Berria - Ekonomia

Kontu bera dugu, ez oinarrizko ikerkuntzan bakarrik, baizik eta haren **aplikazioetan** ere berdin. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ikuspegi horren arabera, teknologia zientziaren **aplikazio** soila litzateke. Askoren artean

Poto eta guzti, egokiera hartarako guztiz aproposa izan zen kantua (Atxagaren plagioaren teoriaren **aplikazio** jatorra), eta bat baino gehiago jarri zuen negarrez, bere sentimenduaren indarrez. Xabier Mendiguren Elizegi

Matematika astronomikoen **aplikazio** harrigarriak. Iñaki Mendiguren

Modu honetako materialek **aplikazio** interesgarriak dituzte transformagailu elektrikoetan, bobinetan. Berria - Gaiak

Eskaera egitean, sekuentzia genetiko horren **aplikazio** industriala zein izango den ere zehaztu behar da. Berria - Gaiak

Eskola-sistemaren barruan bertsolaritzaren **aplikazio** pedagogikoa aintzat harturik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Plangintzarako iradokizun erabakigarri batzuk eskaintzen ditu, iraunkortasuneranzko politiken adierazle gisa, **aplikazio** ekonomiko, politiko eta sozialetarako. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

EAEko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen **aplikazio** juridikoa lanean azaltzen duenez, agerikoak dira lege horrek dituen hutsuneak. Berria - Harian

Webgunearen atal bakoitzean informazio iturriak ikus daitezke eta irudi horiek (mapak, grafikoak...) beste **aplikazio** informatikoetara eramateko aukera eskaintzen da. Berria - Euskal Herria

Arkimedesen printzipioaren **aplikazio** zuzena. Jon Alonso

Ez al da beharrezko halako eskarmenturik, legeen **aplikazio** zuhurra egin ahal izateko? Andres Urrutia

Halako organon baten **aplikazio** xeheak arrazoimen hutsaren sistema bat eraikiko luke. Ibon Uribarri

Ez da inolako modurik asmatzeko nora eramango duen ikerbide jakin batek, ez eta, beraz, zein izango diren **aplikazio** posibleak. Juan Garzia

Burgundiarren legearen eta bisigodoenaren **aplikazio** bidezkoa, lur-banaketaz. Iñaki Iñurrieta

Aplikazio praktikorik gabe, eskola-ariketa hutsa izatera behartua, erretorikak baztertuz joan zen *inventio*aren eta, neurri txikiagoan, *dispositio*aren alorretako alderdiak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kategoriek ez dute gauzen ezagutzarik ematen begiespenaren bidez, begiespen enpirikoari egindako **aplikazio** ahalgarriaren bitartez izan ezik. Ibon Uribarri

"Zenbait udali legeen **aplikazio** malguagoa egin dezatela eskatu nahi diegu", esan zuen Trebiñok. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko zuzeneko inbertsioen eragile atzerritarrek menderatu ohi dute teknologia hori, eta teknologiaren **aplikazioa** eraginkorra eta probetxuzkoa gertatzea nahi izaten dute. Koro Navarro

Beti bezala, era horretako neurrien eraginkortasunari dagokionez, **aplikazioa** orokorra den ala ez da garrantzitsuena. Koro Navarro

Termino edo kontzeptu hori egiazko naturatik arras urruti geratu denez, berriro teorizatu, jorratu eta garatu beharko da, elikadura munduan zentzuzko **aplikazioak** eman dakizkion. Edorta Agirre

Errealitate printzipioaren ezinbesteko **aplikazioa**. Iñaki Heras

Legearen atzera begirako **aplikazioa** Espainiako Konstituzioak debekatu egiten duela-eta, Paroten aurkako neurria Konstituzioaren aurkakoa izan litekeela ohartarazi du. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ingurumen-legediaren **aplikazio**-epeak aurreratuko dituztela. Berria - Euskal Herria

Izan ere, formulazioen eta **aplikazio** moduen arabera, Hegoaldearen industrializazioa geldiarazteko ezkutuko modu bat izan daitezke. Koro Navarro

Erabiltzaile diodanean **aplikazio** programez eta makinez ere ari naiz. Berria - Gaiak

Aurrera laster egiten duen artikulua da, eta ematen dituen **aplikazio**-adibideak ez dira beti-beti oso konbentzigarriak. Josu Zabaleta

Diseinu grafikoa *actio*aren diskurtso idatziaren **aplikazio** esparrua dela esan baitezakegu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Euretatik ekinda ikus daiteke nola era daitezkeen beste objektu batzuk, beste kontzeptu batzuk, beste enuntziazio-modalitate batzuk, edo beste aukeraketa estrategiko batzuk (**aplikazio**-eremu zehatzagokoak) orokortasun txikiagoko arauetan oinarrituta. Xabier Arregi

Deskribatu behar da, era berean, sendagilearen diskurtsoaren jatorria den esparru institutzionala eta diskurtso honek bere jatorri legitimoa eta **aplikazio**-puntua aurkituko duen gunea. Xabier Arregi

Aplikazio kontuak, kautela osatzaile eta erantsiak, objektu iragankorrak edo aldakorrak, berba batez, aginpidearen jarduneko ikuskatze lana eskatzen duten horiek, botere arauemaile edo sortzailearenak baino, araudien eskukoak dira. Andres Urrutia

Legearen **aplikazio** dekretuak lehenbailehen presta ditzaten galdegin die Barne Ministerioko zerbitzuei. Berria - Euskal Herria

Filipe Bidart euskal presoa baldintzapean askatzeko erabakirik ez du hartu Kondenen **Aplikazio** Auzitegiak. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Reimseko Epaitegiko Zigor **Aplikaziorako** Eskualde Batzordeak eskaera ukatu zion, eta urte batez eskaera berri bat egiteko debekua jarri zion. Berria - Euskal Herria

"Ireki..." **aplikaziora** itzuli nintzen. Aingeru Epaltza

Lanbidek izango duen informatika **aplikazioa** aurkeztu zien Azkarragak atzo prestakuntza zentroei, Gasteizko Europa gizarte etxean eginiko jardunaldian. Berria - Ekonomia

Egun badaude sekulako aukerak multimedia **aplikazioetan**. Patxi Iturritegi

5 ***aplikazio bertikal*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Aplikazio bertikal bat edo merkatu bertikaleko aplikazioa, bakarrik edo estu definitutako merkatu baten betebeharrak betetzen dituen software bat da. Honek aplikazio horizontalarekin egiaztatzen du. ETC-entziklopedia

6 ***aplikazio eremu***

Euretatik ekinda ikus daiteke nola era daitezkeen beste objektu batzuk, beste kontzeptu batzuk, beste enuntziazio-modalitate batzuk, edo beste aukeraketa estrategiko batzuk (**aplikazio-eremu** zehatzagokoak) orokortasun txikiagoko arauetan oinarrituta. Xabier Arregi

7 ***aplikazio geruza*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Aplikazio geruza : Erabiltzailearengandik gertuen dagoen geruza da. Aplikazio baten bitartez sarerako sarbidea eskaintzen du. ETC-entziklopedia

Geruza honek datu egitura abstraktuak maneiatu eta interpretatzeko moduan uzten ditu **aplikazio geruza** edo aplikazio mailari. Honela datuak zifratzea eta konprimatzea ahalbidetzen du. ETC-entziklopedia

TCP/IP-ren gainean exekutatzen diren direktorio-zerbitzuak kontsultatzeko eta aldatzeko **aplikazio geruzaren** edo aplikazioaren protokolo bat da. ETC-entziklopedia

8 ***aplikazio horizontal*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Informatikan, **aplikazio horizontal** bat prozesu edo negozio-gune orori soluzio orokor bat ematen diona da. ETC-entziklopedia

9 ***aplikazio informatiko***

Besteak beste, zuzentzaile ortografiko eta gramatikalak Xuxen zuzentzailea kasu eta hiztegien erabilerarako **aplikazio informatikoak** sortzea da Eleka Ingeniaritza Linguistikoaren egitekoa. Berria - Harian

Webgunearen atal bakoitzean informazio iturriak ikus daitezke eta irudi horiek (mapak, grafikoak...) beste **aplikazio informatikoetara** eramateko aukera eskaintzen da. Berria - Euskal Herria

10 ***aplikazio lineal*** *(corpusean ez dago; ETCn **411** agerraldi)*

Matematiketan **aplikazio lineal** bat aplikazio bat da bi bektore-espazioren artean, honek eransketa eta biderketak operazio bektore eskalar bezala mantentzen ditu. ETC-entziklopedia

Geometria euklidearrean, eskalatze uniformea (edo eskalatze isotropoa) entitate ezberdinen tamaina (forma edo irudi geometrikoak bezala) norabide guztietan berdina den eskala-faktore baten bidez handitzen edo uzkurtzen duen **aplikazio lineal** bat da. ETC-entziklopedia

Irakasleak nola kudeatzen dituen halakoak egoeran, lagundu egingo dio ikasleari bi zenbaki osoren arteko biderketatik (batuketa-eredua, batuketa errepikatua) zenbaki oso baten eta arrazional baten arteko biderketara pasatzen (biderketa-eredua, **aplikazio lineal** baten irudia). ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikastaro honetan, aldiz, bektore-espazio abstraktuak eta **aplikazio linealak** nabarmenduko ditugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 ***aplikazio maila***

Kontseilua eta osatzen duten lan-taldeak animatzea; erabakitako hizkuntza ekintzen gauzatzera, laguntzea; martxan diren hizkuntza neurriak ebaluatzea, beraien **aplikazio maila** neurtzeko. Herria

12 ***aplikazio mugikor*** *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Testuinguru mugikorra: **aplikazio mugikorrak** erabiltzerakoan, erabiltzailea mugimenduan egon daiteke. Gainera, beste pertsonekin eta objektuekin harremanetan jar daiteke. ETC-entziklopedia

Gero eta gehiago izango dira ekonomia, kultura, hezkuntza, aisia... arlo guztietan eragina izango duten tresna eta **aplikazio mugikorrak**. ETC-prentsa

Duela gutxi Twitterrek mezuak itzultzeko aukera jarri zuen bere **aplikazio mugikorrean**. ETC-prentsa

Zaila bazirudien ere, Whatsappak eta gisako **aplikazio mugikorrek** are gehiago azkartu dute edukiak kontsumitzeko modua. ETC-prentsa

Aldiz, **aplikazio mugikorren** eztandarekin jende askok gero eta era soilagoan erabiltzen ditu horiek. ETC-prentsa

Aplikazio mugikorren inguruan askorik jakin gabe, halakoak egiteko aukera emango dute Skura mobile kooperatibako lagunek. ETC-prentsa

Aplikazio mugikorretan, lautik bat euskaraz dago: webetan, hamarretik bat. ETC-prentsa

Ezaugarri horiek guztiek eragina dute datu-kudeaketan, eta **aplikazio mugikor** sendoek kontuan hartu behar dituzte diseinatzeko garaian.3 ETC-zientzia, zuzenbidea

Bideo interaktiboen edizioa, webgune sinpleen sorrera, Web teknologien ezagutza edota **aplikazio mugikorrak** sortzea (programaziorik jakin gabe) dira ekimen honen bidez egin daitezkeenak. ETC-literatura, saiakera

Estrategia posible bat izan liteke **aplikazio mugikor** bat txertatzea multimedia-proposamenean; izan ere, kontsumo-datuak erakargarri suerta daitezke gure proiektuaren inbertitzaileentzat, eta negozio-eredu hori eraginkorra da oso (Freemium, Premium, deskargak eta abar). ETC-zientzia, zuzenbidea

13 ***mugikorreko aplikazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

WhatsApp izeneko **mugikorreko aplikazio** bat sortu dute. ETC-literatura, saiakera

Mugikorreko aplikazioen bidez egin beharrekoak eginak datoz, etxetik txortan eginak, edo geroko uzten dute bestela. ETC-literatura, saiakera

Zeresana ematen duen beste kontu bat **mugikorreko aplikazioen** bidez argazkiak moldatu eta txukuntzeko erraztasuna da. ETC-prentsa

Mugikorreko aplikazioen bidez egin beharrekoak eginak datoz, etxetik txortan eginak, edo geroko uzten dute bestela. ETC-prentsa

Honela funtzionatzen du Glovok: egun batzuk lehenago, **mugikorreko aplikazioan** adierazi behar dituzu astean egin nahi dituzun lanorduak. ETC-prentsa

Mugikorreko aplikazioak ere garatu dira ikasleei matematika ikasten laguntzeko. ETC-entziklopedia

14 ***sakelako mugikorraren aplikazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Sakelako mugikorraren aplikazio edo app bat, gailu adimentsuetarako diseinatutako aplikazio informatiko bat da. ETC-entziklopedia

15 ***telefono aplikazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Eta **telefono aplikazioetan**, Lander gizajoari begiratu besterik ez dago, "Marika ergelak baino ez!". ETC-literatura, saiakera

Telefono aplikazioen bitartez harremanak izatea gero eta ohikoagoa bihurtu da gure inguruan. ETC-prentsa

Han ere itzulpen lanak egiten nituen zenbait **telefono aplikaziotarako**, txineratik euskarara eta alderantziz. ETC-prentsa

Cruising terminoa, geroago, teknologiaren testuinguruan ere erabili izan da, Interneteko zerbitzuen bidez, **telefono aplikazioen** bidez-edo, sexu-harremanak bilatzearen ekintza adierazteko. ETC-entziklopedia

16 ***telefonoko aplikazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Telefonoko aplikazioen geokokapenek ez dute seinalerik bidaltzen. ETC-literatura, saiakera

Gaur egun, berriz, ikasleek eskuko **telefonoko aplikazio** berrian praktiken inguruko galdera batzuk erantzuten dituzte, eta gero ebaluazio horiek ordenagailuan jasotzen dituzte tutoreek. ETC-prentsa

Bestela, geokokapenarekin **telefonoko aplikaziotik** eskaera egin daiteke, hurbilen dauden ekintzak bistaratzeko. ETC-prentsa

Herritarrek ezer gutxi egin dezakete oraingoz: itxaron, **telefonoko aplikazioan** une oro airearen kalitate indizeari erreparatu eta laino grisak berriz hiria hartzen duenean maskararen atzean ezkutatu. ETC-prentsa

Duela hiru urte martxan jarri zituzten billeteak kenduak dituzte, eta, horren ordez, sakelako **telefonoko aplikazio** baten bidez egiten dituzte erosketak ekinbideko kideek. ETC-prentsa

Telegram aplikazioak hasiera-hasieratik eskaini zuen telefonoz erabiltzeko aukeraz gain ordenagailuetan erabiltzeko aukera. Telegram, **telefonoko aplikazioa** izateaz gain,

mahaigaineko aplikazioa ere bada. ETC-entziklopedia

15 ***web aplikazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **191** agerraldi)*

Software-ingeniaritzan, **web aplikazioa** (ingelesez "webapp") deitzen zaio erabiltzaileek web arakatzaile bat erabiliz urrutiko zerbitzari batean exekutatu dezaketen aplikazioari, dela intranet batean, dela Interneten. ETC-entziklopedia

Horretarako, Studio izeneko **web aplikazio** bat erabili behar da. ETC-prentsa

Dagoeneko jakina den bezala, **web aplikazioak** pil-pilean daude Internet munduan. ETC-prentsa

Baina ordenagailu gehienetan egon daiteke instalatuta, beste aplikazio batzuek edo **web aplikazioren** batek horrela eskatzen dutelako. ETC-prentsa

Splitweet on line aplikazioa da, hau da, **web aplikazio** bat Twitterreko kontuak kudeatzeko. ETC-prentsa

Gainera, blog bezalako **web aplikazio** bat instalatu edo garatu behar bada bertan, datu basea eta programazio lengoaia bat ere ekarri behar du. ETC-prentsa

Euskal Herriko Unibertsitatean garatutako **web aplikazio** bat da, eta ahozkotasuna landu eta praktikatzea du xede. ETC-prentsa

Interneterako estrategia aholkularitza integrala ere eskaintzen dute, eta **web aplikazioen** zerbitzarien teknologia aurreratuekin lan egiten dute. ETC-prentsa

Web aplikazioetan oinarritutako sistema eragile bat da haien proposamena, HTML 5 estandarra oinarritzat daukan ingurune arina. ETC-prentsa

Web aplikazio askok hiru mailako arkitektura deiturikoa erabiltzen dute; arkitektura horrek tarteko maila bat gehitzen du bezeroaren eta datu-basearen zerbitzariaren artean. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aplikazio berriak** (3); **aplikazio gisa** (3); **aplikazio izan** (3); **kondenen aplikazio** (4)
> **aplikazioa baino** (3); **beren aplikazioa** (3); **horren aplikazioa** (4); **legearen aplikazioa** (4)
> **horren aplikazioak** (3)
> **beren aplikazioan** (3)
> **bere aplikazioaren** (5)

---

apnea 1 *iz* arnas hartzeko arazoa.

Ameriketako Estatu Batuetan eginiko ikerketa baten arabera, zurrunka egiten duten edo loaren **apnea** pairatzen duten bost urteko haurrek emaitza txarragoak lortzen ohi dituzte adimena eta oroimena neurtzeko frogetan.Eta hortxe, bere arnasa gero eta lasaiagoarekin naretuta, **apneaz** gogoratu da aita. Berria - Gaiak

Apneak arnas hartze behartu bati jarraikion arnasketaren etenaldi iragankorra dituztenek ezin dute lo sakon egin. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Atturri eta Bidasoaren artean **apneak** jota dago euskara, bizi edo ito kinka larrian. Berria - Kultura

3 ***loaldiko apnea*** *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi)*

Loaldiko apnea arnas aparatuaren gaixotasuna da, izatez lepo aldean dagoen butxadura batek sortutakoa eta pazientea lo dagoenean gertatutakoa. ETC-entziklopedia

Loaldiko apnea: pertsonak arnasketan geldialdi bat edo gehiago egiten duenean edo lo dagoen bitartean azaleko arnasketak dituenean. ETC-entziklopedia

Autore batzuek **loaldiko apnea** eta izu-ikararen nahastea erlazionatu dituzten arren, **loaldiko apnea** duena sarritan igarotzen da lotan egotetik esna egotera eta esna egotetik lotan egotera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Loaldiko apnea-hipoapnea sindromea: badirudi iktus errepikaria izateko arriskua areagotzen duen faktore independentea dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Loaldiko apneak Alzheimerren gaitza eragiten duen genearekin lotura du. ETC-prentsa

Horren ondotik doaz **loaldiko apnea** eta atsedenik gabeko zangoen sindromea: horiek ere nahiko ohikoak dira. ETC-prentsa

Arrisku kardiobaskularra gehitu egin da, baita diabetesarena, hipertentsio arterialarena, **loaldiko apnea**-sindromearena eta alterazio pneumatologikoen intzidentzia ere. ETC-prentsa

Zurrunga egin edo **loaldiko apneak** edukiz gero, pisua galdu ondoren sekulako hobekuntza nabarituko duzu. ETC-prentsa

Lehena, zurrungak eta **loaldiko apneak** dira, pertsona batek lo dagoenean arnasteari uzten dionekoa. ETC-prentsa

---

apo-apoan *adlag* nekearen nekez.

Periko entzun zuen alboko kaletik gora pasatzen, eta kontrako aldetik kairantz abiatu zen, bai baitzekien beste serenoa, Totorika, sona handiko edatunetakoa zela herrian eta **apo-apoan** agertzen zela bazterrotatik inork birritan deitu barik. Josu Landa

Ura edan zuen **apo-apoan**. Iñaki Arranz

---

apo[1] 1 *iz* ornodun urlehortarra, igelaren antzekoa baina gorputz lodiagoa eta azala garatxoz betea duena*(Bufo vulgaris, B. bufo* etab.).

Hemen esaten da gurutzearen seinalea eginez San Antoniok **apo** bat kapoi bihurtu zuela, eta gero, gurutzearen seinalearekin, baita ere, kapoia arrain. Jon Alonso

Tapiaren eta Izagirreren **apoa** ez da txerrikortako ordotsa, putzuetako zapoa baizik. Iñigo Aranbarri

Usoa ere, hegaztirik agresiboenetakoa da berez, nahiz bakearen sinbolo unibertsal zuria izan; edo **apoa** animaliarik zakarren, nazkagarrien, eta gaiztoena sinbologia kristauean, bere izatez hagitz animalia gozo eta kaltebakoa izan arren. Patziku Perurena

Ikasleek hontza edo katua edo **apoa** ere ekar dezakete. Iñaki Mendiguren

-Lakuaren urik gardenenetan ere **apoak** eta igel satsuak ez daude geldi. Joan Mari Irigoien

Nik ziur-ziur uste dudan bezala, oker egin badu, berriz, **apoa** pozoituta hilko da seguru asko. Iñaki Mendiguren

Eta bailara eta testuinguru berean Juanis deitzen zieten berriz **apoei**, Fraintzi aldetik sartutako Joanes izenaren sorgin sonak eraginik. Patziku Perurena

Skinny eta bera elkarrekin itzultzen ari ziren urmaelaren ertzean **apoekin** jolastetik. Lopez de Arana

Errealismo, iz. Natura **apoei** iruditzen zaien bezalakoxea pintatzeko artea. Xabier Olarra

Apoek eta sugeek ere. Elizen arteko biblia

Baina otorduak egunero aldatzen badizkidate ere, inoiz amatatuko ez den argi gogorraren azpian **apoen** kantu minduak irakatsiko dit noiz den gau. Koldo Izagirre

Uretako piztia guztiak esnatuak ziren; igelak amorru batean ari ziren korroka, eta aldika-aldika, behin ezkerretatik hurrena eskuinetik, **apoen** ahots kobrezkoak izarretara jaurtitzen duen nota labur, beti berdin, triste hori entzuten nuen. Josu Zabaleta

Jangarri, izond. Jateko eta, oro har, digeritzeko ona, hala nola harra **apoarentzat**, **apoa** sugearentzat, sugea zerriarentzat, zerria gizonarentzat, eta gizona harrarentzat. Xabier Olarra

Apoen kastakoak bagara ere, igelak hiltzearen aurka gaude, zinez. Joxerra Garzia

· Purpura-koloreko bi **apo** handi eta heze hildako haragi-euliak irensten eta tripa-festa egiten ari ziren. Iñaki Mendiguren

· Gizon hark **apo**-aurpegia zeukan, aho handia, begi irten xamarrak eta ile beltz sendo laburra. Lopez de Arana

2 irud/hed

Ron mendazko **apo** bat jaten eta sabela igurzten ari zen, eta Hermionek hiru mahaitan zabalduta zituen eskolako lanak. Iñaki Mendiguren

Eta hau guztia gazteek erraz irentsi behar luketen **apoa** balitz bezala, guztiei bostekoa luzatzen jarraitu du oso eta santu. Koldo Izagirre

3 ***apo arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn **48** agerraldi)*

Apo arrunt europarra ("Bufo bufo") Europa, Afrika ipar-mendebaldean eta Asian zabaltzen den urlehortarra da, Irlanda, Korsika, Sardinia, Balear uharteak Balear Uharteak eta beste zenbait uhartetan izan ezik. Euskal Herrian bizi den **apo arrunt** iberiarra, denbora luzez, espezie honen azpiespezie gisa identifikatzen zen. ETC-entziklopedia

Apo arrunt iberiarra ("Bufo spinosus") Bufonidae familiako anuro bat da. Lehenago **apo arrunt** europarraren ("Bufo bufo") azpiespezie gisa sailkatu ohi zen. ETC-entziklopedia

Orain dela gutxira arte sei espezie zeuden: arrubioa, igel arrunta, txantxiku arrunta, **apo arrunta**, baso igel gorria eta uhandre palmatua, eta horietatik bi galdu dira. ETC-prentsa

Bertako **apo arrunta** (bufo bufo) lurrikara gertatuko zela antzeman, nonbait, eta hiru egun lehenago desagertu zen. ETC-prentsa

Apo arrunta (Bufo spinosus) eta arrabio arrunta (Salamandra salamandra) ere bizi dira bertan, nahiz eta gaurkoan ez ditugun ikusi. ETC-prentsa

Apo arruntak (Bufo spinosus) ere egin zuen bere agerraldia. ETC-prentsa

Ingurune itzaltsuenetan, berriz, orbel eta goroldioen artean, uhandre palmatua, baso-igel gorria, **apo arrunta** eta beste zenbait anfibio ere agertzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hobe ezetz, pentsatu nuen, **apo arrunta** da, keinuak egiten ditu poltsa zuri horiekin, horrek Leoren heriotzarekin du zerikusia. ETC-literatura, saiakera

4 *apo arrunt europar* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Apo arrunt europarra ("Bufo bufo") Europa, Afrika ipar-mendebaldean eta Asian zabaltzen den urlehortarra da. ETC-entziklopedia

Apo arrunt iberiarra ("Bufo spinosus") Bufonidae familiako anuro bat da. Lehenago **apo arrunt europarraren** ("Bufo bufo") azpiespezie gisa sailkatu ohi zen. ETC-entziklopedia

5 *apo arrunt iberiar* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Apo arrunt iberiarra ("Bufo spinosus") Bufonidae familiako anuro bat da. Lehenago apo arrunt europarraren ("Bufo bufo") azpiespezie gisa sailkatu ohi zen. ETC-entziklopedia

Hasteko, Apo arrunt "(Bufo bufo)" izendapenaren barruan, hainbat subespezie aurki ditzakegu. Subespezie hauteraiko bat, orain azalduko dugun **apo arrunt iberiarra** da. ETC-entziklopedia

6 *apo-belar*

Haizeak jandako lauza zahar hauen zirrikituetan, astaperrexil pozoitsua eta erabelarra hazten dira; udaberrian, txikoria-belarraren eta **apo-belarraren** lore horixkek, gladiolo gorrimin ederrek eta kuku-praka purpura-koloreek distiratzen dute pareten ondoan. Koro Navarro

7 *apo ezproidun* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Apo ezproiduna ("Pelobates cultripes") Pelobates Pelobatidae familia (biologia) familiako anfibio urlehortarra da, Frantzian, Euskal Herrian eta Iberiar penintsula Iberiar Penintsulan bizi dena. ETC-entziklopedia

Bereziki arriskuan dagoen espezie bakar bat ez dagoen arren, mehatxu egoeran dauden hainbat badirela azaldu du: besteak beste, apo lasterkaria, **apo ezproiduna** eta Pirinioetako uhandrea. ETC-prentsa

8 *apo hontz*

Urtarriletik zikoinak, belatzak eta apo-**hontzak** jaso dituzte batez ere. Berria - Euskal Herria

9 *apo lasterkari* *(corpusean ez dago; ETCn **91** agerraldi)*

Apo lasterkaria ("Epidalea calamita") iparraldeko Europa ipar eta mendebaldeko Europako eskualde hareatsu eta txilardietan bizi den anfibio urlehortarra da. ETC-entziklopedia

Euskal Herriko kostaldean aurkitzen diren **apo lasterkariaren** (Bufo calamita) populazioak desagertzeko zorian daude. ETC-prentsa

Izan ere, Jaizubiako errekan eta ibarrean eta Plaiaundiko Parke Ekologikoan bizi diren hegazti espezie paseriforme batzuengan eragina izango luke, bai eta **apo lasterkariaren** populazioan eta komunitatearentzat interesa duten bi habitatetan ere. ETC-prentsa

Egun, Igeldoko igela ari da aztertzen, **apo lasterkari**, dortoka eta anfibioen erasotzaileekin batera. ETC-prentsa

Apo lasterkariak amaiera zoriontsua nahi du ipuinean. ETC-prentsa

Besteak beste, hegoaldeko zuhaitz-igelean (hyla meridionalis) eta **apo lasterkarian** (bufo calamita) duen eragina aztertu dute. ETC-prentsa

Bereziki arriskuan dagoen espezie bakar bat ez dagoen arren, mehatxu egoeran dauden hainbat badirela azaldu du: besteak beste, **apo lasterkaria**, apo ezproiduna eta Pirinioetako uhandrea. ETC-prentsa

Sopelako Udalak eta Aranzadi elkarteak ekintza plan bat abiatu dute **apo lasterkaria** leheneratzeko, arriskuan baitago. ETC-prentsa

Beste batzuek ezin dute saltorik egin: **apo lasterkariak** (Bufo calamita), esaterako, korrikaldi txiki baten antzeko zerbait egiten du, gelditu, eta berriro korrika. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *apo pikart* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Apo pikarta ("Pelodytes punctatus") Pelodytidae familiako anfibio urlehortarra da, iparraldeko Italian, hegoaldeko Frantzian, Euskal Herrian eta Iberiar penintsulan bizi dena. ETC-entziklopedia

11 *apo pintatu iberiar* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Apo pintatu iberiarra. ETC-entziklopedia

Hala ere, zitazio gehienak hegoaldean jaso dira, Andaluzian, Guadalquivir ibaiaren hegoaldean, **apo pintatu iberiarraren** banaketaren mugarekin egiten duelarik bat bertan. ETC-entziklopedia

12 *apo urrekara* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Apo urrekara ("Incilius periglenes") "Incilius" generoko animalia da. Oso leku gutxitan bizi zen, hala nola Monteverde basoan, Costa Rican eta Erdialdeko Amerikan. ETC-entziklopedia

---

apo[2] *iz* zenbait ugaztun handiren oina osatzen duen adarkizko azal lodia. ik**apatx**[1]; **azkazal**.

Soroek, zaldien **apoez** zanpa-zanpa eginda, tatariarrak han barrena pasa zirela erakusten zuten, eta barbaro horiez esan daiteke turkoez esan ohi dena: "Turkoa pasatzen den lekuan, belarra ez da berriz sortzen sekula!". Karlos Zabala

Koronelak zaldiari **apoak** aztertu ondoren, burua laztandu zion eta kotxean sartu ziren bi-biak. Lopez de Arana

Zaldiak arnasestuka zebiltzan, hatsa zarataka hartzen zutela, **apo** ferratuez harri koskorrak jo eta jo, txinpartak atereaz. Karlos Zabala

Orion azpian geratzen da, zeharka, Tauroren **apoaren** azpian harrapatuta, ezkerreko eskuan borra duela eta eskuinekoa Geminis aldera luzatuz. Santiago Iruretagoiena

Azorriatutako zaldien **apoek** txinpartak eragiten zituzten. Lopez de Arana

Zaldiaren hanketako **apoek** Acuarioren belaunak ukitzen dituzte. Santiago Iruretagoiena

Zaldia lauhazka zihoan, asperturik, goizeko zeru beltzaren azpian, **apoen** atzetik kaxa zahar kirrinkari hura arrastan zeramala, eta Gabriel Grettarekin zihoan berriro kotxean, lauhazka, ontzia hartzera, lauhazka, beren ezti-ilargira. Irene Aldasoro

Kalean zaldi-**apoen** hotsa entzuten zen, baita suhiltzaileen ibilgailuaren adar asaldagarria ere. "Begiratu bat, besterik ez". Lopez de Arana

Ezinezkoa da baita Sara (Lapurdi) eta Dantxarinea arteko bidea egin duten hiru zaldunen ibilia klik batekin laburbiltzea ere: **apoen** kriskitin soinua, pottoken arnasketa urduria, zeramaten ikurrin erraldoiaren dantza, eskuetan zituzten suzirien beroa. Berria - Harian

---

apoarmatu 1 *iz* dortoka.

Ganden igandean hainbertze lohi harrotu, non basez estaliak, **apoarmatuak** iduri, bukatu dute beren lehiaketa atsegin haundirekin. Herria

Beste hainbatetan bezala, **apoarmatuaren** koraza jantzi eta erraietatik mintzatu zen Marta. Harkaitz Cano

Les Problèmes díun problème obra (Paris, 1917), zeinean ordena kronologikoan eztabaidatzen baitira Akiles eta **apoarmatuaren** problema ilustrearen soluzioak. Juan Garzia

Ezjakinek uste dute zozketa infinituek denbora infinitua eskatzen dutela; berez aski da denbora infinituki azpizatikorra izatea, **Apoarmatuarekiko** Lehiaketaren parabola ospetsuak ongi erakusten duenez. Juan Garzia

Zaindu ezazue ongi hor utzi dudan **Apoarmatu** Gorri hori. Harkaitz Cano

2 *apoarmatu diamantedun* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Apoarmatu diamanteduna ("Malaclemys terrapin") Malaclemys generoko animalia da. Narrastien barruko Emydidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

3 *apoarmatu istilzale* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Apoarmatu istilzale ("Emys orbicularis") Europako alderik handienean dagoen ur gezatako dortoka bat da, iparraldean eta erdialdeko zenbait tokitan izan ezik. ETC-entziklopedia

Guztira 11 eme eta zazpi ar askatu zituzten, erdiak **apoarmatu istilzaleren** familiakoak, eta beste erdia, berriz, korrontezaleak. ETC-prentsa

Hirugarren eta azken urte honetan, haurrek, mehatxatuak diren bi animalien ezagutza egin dute: Europako ur-pototxa eta **apoarmatu istilzalea**. ETC-prentsa

4 *apoarmatu korrontezale* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Apoarmatu korrontezale ("Mauremys caspica") Iberiar penintsula Iberiar Penintsulako zati handi batean, Jugoslavia ohian, Bulgariako hegoaldean, Afrikako ipar-mendebaldean eta Asiako hego-mendebaldean ere bizi den ur gezatako dortoka da. ETC-entziklopedia

Euskal Herrian, hemengo **apoarmatu korrontezalearekin** lehiatu da Floridako apoarmatua eta kalte handia eragin dio. ETC-prentsa

Narrastiei dagokienez, aipatzekoa da sugandila buztangorria, edo sakanetan ikus daitekeen **apoarmatu korrontezalea**. ETC-prentsa

---

apobelatz *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* zapelatza.

Errankide asko ditu, **apobelatzek** jokatüa, arrail, aserik, bellotü, borratxo, briu izan, edanik, hedallo, mizpira üken, txino izan, kotxino. ETC-literatura, saiakera

---

apodera *iz* bulta, oldarra.

Baina, hori hala bada, egia da, halaber, ezen, lehen abiaduraren eta lehen **apoderaren** ondotik, gauza bakoitza bere neurrirat etortzen dela, eta, neurri hartan, neurri gabeko sentimendua nagusitu zitzaidala, handik gutirat, Lutheroren alde. Joan Mari Irigoien

---

apoderan *adlag* bultan, oldarrean.

"Luthero akabatu nahi duzue eta Lutherok akaba zaitzatela!", txakurrak segidan aita jesuita lurrerat egozten zuela, eta nola, beldurraren lehen indarrean eta **apoderan**, don Laureano gibelat bihurtu zen... baita herritar bat ere, eta bertze guztiak ere, lehenaren gibeletik. Joan Mari Irigoien

---

apoderatu[1], apodera(tu), apoderatzen da *ad* prestatu; ahalegindu.

Pixka bat makurtu eta agur egin zion, eta hark buru-makurtu batekin erantzuten ziola ikusirik, **apoderatu**, eta deblau esan zion: [...]. Matías Mujika

Gizon batzuk nola izaten dira beti presan eta beti berandu dabiltzanak, etxe batera sartu, berokirik erantzi ez, maratila eskuan eduki denbora guztian, uneoro adio esatera **apoderatu** eta, azkenean, eseri balira baino luzaroago gelditzen direnak? Matías Múgica

Bai, juzgatzera eta kondenatzera **apoderatzen** nintzen momentu hartan, akusatuaren itxuran ikusten nuen neure burua. Matías Múgica

---

apoderatu[2] *iz* eskudun den pertsona, ahalduna.

Bildutako 67 ordezkarietatik (guztira 71 dira) 46 **apoderatuk** EBBren jarrera sostengatu zuten, eta 20k kontra bozkatu zuten, batek zuri bozkatu zuelarik. Berria - Euskal Herria

Herritarren Zerrendak elkartasuna adierazi dio Nos-UP alderdi galiziarreko kide Carlos Moraisi, gaur Santiagon epaituko baitute Europako hauteskundeetan Bizkaiko **apoderatuen** sinadurak faltsutzea leporatuta. Berria - Euskal Herria

---

apodiktiko *izond* berez begien bistakoa, nabarmena.

Gauza baten errealitatea froga baten bidez ezagutzen denean, hor ez dago iritzi ezberdintasunik, ez gaitzespenik, ez eta frogatua onartzeko oztoporik ere, "kontraesan **apodiktikoa"ri** eusten dion ezjakinen baten kasuan izan ezik. Xabier Kintana

Izan ere, esakune geometrikoak **apodiktikoak** dira osotara, h[au] d[a], beren beharrezkotasunaren kontzientziari lotuta daude, adibidez, "espazioak hiru dimentsio besterik ez ditu"; halako esakuneak, ordea, ezin dira judizio enpirikoak edo esperientzia-judizioak izan, ezta beraietatik abiatuta inferitutako esakuneak ere. Ibon Uribarri

"Hiruki batean bi alde batera hirugarrena baino handiago dira", ez dira lerroaren eta hirukiaren adigai orokorretatik eratortzen, begiespenetik baizik, eta gainera a priori ziurtasun **apodiktikoarekin** eratortzen dira. Ibon Uribarri

Froga **apodiktikoari** soilik dei dakioke demostrazioa, froga hau intuitiboa den heinean. Ibon Uribarri

Garrantzizkoa da jakitea ea azken zientzian matematikoa deitzen zaion ziurtasun **apodiktikora** iristeko metodoa ziurtasun hori bera Filosofian bilatzeko metodo berbera ote den, dogmatikoa deitu beharko zaion metodoa, alegia. Ibon Uribarri

---

apodiktikoki *adlag* era apodiktikoan.

Hala ere, **apodiktikoki** ziurra da era berean inoiz ez dela aurkakoa itxura apur batekin, are gutxiago dogmatikoki, baieztatu ahal izango duen gizakiren bat azalduko. Ibon Uribarri

Berak gutxienez ezein ziurtasun ez aipatzea halako zerizanik eta geroko bizitza halakorik ez izateaz, eta hori arrazoimen soilaren bitartez egitea; eta beraz, **apodiktikoki** frogatu beharko lukeenez gero, orduan bien ezintasuna frogatu beharko luke. Ibon Uribarri

Izan ere, **apodiktikoki** frogatuko lukeen bat bakarra balu (arrazoimen hutsaren gaietan gertatu behar duen legez), zertarako beharko lituzke gainerakoak? Ibon Uribarri

Programa horren arabera epistemologiak natur zientziaren ezagutzaren baieztapena juzgatu nahi du **apodiktikoki**. Askoren artean

---

apodosi *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)* *iz* hizkuntzalaritzan, baldintza-perpausez mintzatuz, ondorioa adierazten den zatia.

Prozedura honetan, beraz, bi esaldi erabiltzen ditugu, lehenengoa, baldintza eta, bigarrena, ondorioa; gramatikariek protasia eta **apodosia** ere deitzen diete. ETC-literatura, saiakera

Zein protasi proposatuz bihurtuko ziren plan horien guztien kontratazioak **apodosi** natural eta nahitaezko? ETC-literatura, saiakera

Esaldi hauek eta posible diren honelako beste guztiek protasi eta **apodosiaren** arteko kausa-ondorio erlazio bat adierazten dute. ETC-literatura, saiakera

113 Kontzeptu erretorikoak euskaraz azaltzen diren lehen aldia izanik, Leizarragak bereziki aipatzen ditu periodosaren atalak: kolon delakoa, hots, protasia edota **apodosia** osatzeko moduko hiru hitzetik gorako multzoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Inola ere ez zuen adiera bera ez baldintzazko protasiak ez **apodosiak**, izaera erreala (A hiltzen bada, B ere hil dateke... ETC-zientzia, zuzenbidea

Unitate horiek periodo izena hartu ohi dute eta bi unetan garatzen dira: protasian (tentsioaren sorrera) eta **apodosian** (pentsamenduaren ixtea, perpausaren lasaitasuna eta osotasuna zekarrena hain zuzen). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

apodun *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)* *iz* ugaztunez mintzatuz, apoa edo apatxa duena.

Animalia motaren bat izango zen, ekaitzak izutua, eta, zer ere zelarik -oreina, zaldia, ezbairik gabe, **apoduna** zen -, lasterka bizian aldameneratzen ari zen, burua galdurik, sasiartea ebakiaz. ETC-literatura, saiakera

Ez baitut beti manatua egiten ostiko zonbaiten hixtuak ez naukalakotz beldurtzen, partikulazki nagusiak adardun edo **apodun** izakien bila manatzen nauelarik eta nik, horiek ezin soportatuz, uzten baititut nahi dutena egitera. ETC-literatura, saiakera

Dena den, espezie sorta oso zabala da: Madeleine aldiko artistek gustukoen zituzten **apodunez** gain, beste asko utzi dituzte hormetan; esate baterako, haragijaleak, hegaztiak, arrainak, eta baita suge itxurako bat ere. ETC-prentsa

"Zaila da argitzea, baina lehian ari diren haragijaleak dira, eta bai basapiztiek bai gizakiek **apodunak** kontsumitzen zituzten: bisonteak, uroak, zaldiak, oreinak, basurdeak... ETC-prentsa

Hala ere, **apodunak** ehizatzeko baimen baldintzatua eman daiteke araldian. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ugaztun **apodun** belarjalea, handia eta zango-motza, azala gorroa, lodia eta zimurra duena, sudur gainean adar bat edo bi dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Espezializazio hori nabarmena izan zen **apodunen** ehizaren alorrean. ETC-entziklopedia

Horrekin batera badira arrantzaren aztarrenak, itsas hegaztien ehizarenak -pinguino mota bat Pico Ramosen eta Herriko Barran-, ugaztun **apodunen** ehizarenak -oreina, orkatza eta basurdea batez ere- eta baso ustiakuntzarenak orobat. ETC-entziklopedia

---

apofisi **1** *iz* hezur bateko berezko irtengunea, beste hezur batekin artikulatzen edo gihar batean txertatzen dena.

Basa horren plintoa zirkularra izango da, eta diametroaren erdia hartuko du altueran; plintoaren gainean toroa joango da bere **apofisiarekin**, eta plintoaren zabalera berekoa izango da. Santiago Iruretagoiena

Kapitelaren altuera hiru partetan banatuko da, eta horietako bat plintoari emango zaio, abako bezala dagoenari, bestea ekinoari, eta hirugarrena hipotrakelioarentzat izango da, bere **apofisiarekin** hartuta. Santiago Iruretagoiena

2 *apofisi zorrotz* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Talka-uhinak zaldien ortopedia arazoak tratatzeko erabiltzen dira: tendoien eta lotailuen lesioak, **apofisi zorrotz** edo apofisi espinosoen arazoak, eskafoide sindromea, artritisa. ETC-entziklopedia

3 *arantza apofisi* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Zeharkako apofisi eta **arantza apofisi** artean, bestalde, lamina dago. Bi egitura hauen artean orno arkua eratzen dute. ETC-entziklopedia

4 *xifoides apofisi* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Alde esternalean bularrezurraren **Xifoides apofisian** ezarriko da. Hor diafragmaren zuntzek triangelu txiki bat eratuko dute trigono esternokostala izenekoa eta bertatik zentro frenikoaren erdialdeko ertzera abiatuko dira zuntzak. ETC-entziklopedia

---

apogeo *iz* zerbaiten garapenaren, intentsitatearen edo handitasunaren mementu gorena.

Liburu osoa barnebiltzen duen ikuspuntu eskatologikoa duzu, **apogeoarena**, apokalipsiarena. Markos Zapiain

---

apoiatu, apoia(tu), apoiatzen **1** da *ad* bermatu.

Hantxe, miratoki baten hedaguneko espaloian ikusi zuen aita, farola baten argipean motozikletaren kontra **apoiatuta**. Josu Landa

Hantxe zegoen Jean Claude, deskapotablearen kapota estalian **apoiatuta**, lerden, garai, dotore. Xabier Mendiguren Elizegi

Prue Ramsay, aitaren besoetan **apoiaturik**, maiatz hartan izan zen ezkontzan emana. Anton Garikano

2 du *ad* pertsonez mintzatuz, hari laguntza eman, hura sustengatu.

Guk Chavez **apoiatzen** dugu, baina ez dugu espero gauza egun batetik bestera aldatuko denik. Pako Aristi

Ama ere isilik, mutu, baina hitzik gabe ere gauza garbi dago, amak aita **apoiatzen** duela, alegia, ahantz dezadala haien Xerazade kuttuna, ez daudela negoziazioetarako prest. Pako Aristi

Pintatu egiten nuen eta hor ere amak guztiz **apoiatu** ninduen. Ana Urkiza

Joxe Irazu Nobel sarirako izendatzea hemen eta munduan **apoiatuko** duten kulturako jendeen zerrendak egiten has gaitezke. Berria - Kultura

3 (hedaduraz)

Eta horren eraginez bestela inoiz altxatuko ez zen militar askok O-4ko kolpea bultzatu eta **apoiatu** egin zuten. Pako Aristi

---

apoiatura **1** *iz* musikan, nota nagusia nabarmentzen duen nota multzo apaingarria.

Baina balio izan zitzaigun Koczis jotzailearen digitazio apartaz gozatzeko gora eta beherako eskaletan, mordente, trino edo **apoiaturen** gardentasunaz harritzeko. Berria - Kultura

2 *apoiatura labur* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Acciaccatura delakoa nota nagusi batetik beheko tonoerdi baterako distantziazko apoiatura bat da. Literalki, "zanpaketa" bat da, bereziki arpegioan **apoiatura labur** eta biziki disonantedun apaindura. ETC-entziklopedia

---

apoio *iz* zerbait lortzeko laguntza edo bermea.

Beharko nuen ere **apoioa** etorkizunean. Bernardo Atxaga

---

apoka *adlag* lauhankan.

Geunden lekuan bertan, ordu batzuk lehenago txortan ikusi gintuen baso ondoko belar gainean, txakurka jarri nintzen, edo **apoka**", Antoniok zioen moduan. Aitor Arana

apokalipsi **1** *iz* munduaren amaiera.

-Apokalipsia ! -oihukatu zuen Gödelek, eskuak burura eramanez-. Fernando Morillo

Metroan begiak zuloetatik irteten zitzaizkien ondokoa ahoskatzean: **apokalipsia** , tifusa, kolera, metrailaketa, altxamendua, sute batean hiltzea, uretan hiltzea, goseak hiltzea, lokatzetan hiltzea. Lopez de Arana

Nolanahi dela ere, **apokalipsiaren** hasiera iruditu zitzaidan hura, une hartan. Josu Zabaleta

Uda guztia neraman mundua **apokalipsiaren** pinturaz margotzen, arrazoi gabe, ohikoa denez. Lander Garro

Liebanako Beatoak bere **apokalipsiaren** komentarioa ilustratzeko mapa egiteko, bidaiarien testigantzak eta erlijio liburuak izango zituen erreferentzia, eta paradisua ipini zuen maparen iparsartaldean, eta Europa, Asia eta Afrikaz gainera terra incognita bat itsasoaz bestaldean, apostoluak Lurraren lau aldeetara igorriak izan zirelako. Joseba Sarrionandia

Claudio Magrisek dio **apokalipsia** beste zentzu batean ere ager daitekeela, greziarrek ikusten zuten moduan: errebelazio moduan, azpian dagoen zerbaiten azaleratze moduan. Berria - Kultura

Sortze kezkagarria, utopiak, **apokalipsiak** , berrerosiko du. Markos Zapiain

Halako pertsonaiak gehien nabarmentzen diren eremuak jorratu ditu: eliza eta historia, **apokalipsia** eta iraultza. Markos Zapiain

-Behin, erran nuen nostalgiaren mugan, euria gogor ari zen gau misteriotsu batez, Uztaritzeko ikastolak antolatu kantaldi batean, **apokalipsia** oihukatzen entzun nuen. Itxaro Borda

Hargatik baikor nenbilen, errealitatearen pleguetan, **apokalipsia** kultural usaina zekarren behialako itzalaren agerpena berriro espero nuelako, Fanch eta biok sumatu suteen misterioaren argi garbira ekartzeko bidearen konfirmatzeko. Itxaro Borda

Apokalipsia agertzen da, baina ez Hollywoodeko filmetako irudi tremendistekin. Berria - Kultura

2 Itun berriko azken liburua, San Joan Ebanjelariak idatzi omen zuena, munduaren amaieran gertatuko denari buruzkoa.

Zaldiak ikusteko hiru modu: ezkerrean **Apokalipsiko** zaldiak, XI. mendeko miniatura; eskuinean, Rubensen Felipe II.a zaldiz; behean, Géricault-en Derbya. Josu Zabaleta

Neke handia zen niretzat **Apokalipsia** irakurtzea, baina begiak hara estekaturik nituen, beste zentzumenak eta bihotza bera ere loturik nituen bezain sendo. Edorta Jimenez

Borreroak, lanean ari denean, **Apokalipsiko** tronpetak entzun uste izaten ditu maiz. Karlos Linazasoro

Angers-en dira ere, leku berean Libertate (1943), Paul Eluard-en poeman inspiratu tapizeria, eta bereziki 1946ko Lanskenetaren sortzea: hona Lurçat pertsegitzen duten munstro adardunak eta **Apokalipsiko** laugarren zaldizkoa. Berria - Kultura

Frantzisko gizon predestinatutzat aurkezten digu, Elias berria, **Apokalipsiko** seigarren zigiluko aingerua, irudi transzendente eta idealizatua. Askoren artean

3 irud/hed

Mapa bat dute orain, animalien **apokalipsia** aurreikusteko. Berria - Gaiak

Dortoken **apokalipsia** ezpata-arrainaren eta hegalaburraren familiako kideen harrapaketari dago lotuta. Berria - Gaiak

Zer gertatuko da, energiaren **apokalipsia** ? Berria - Gaiak

---

apokaliptiko *(orobat **apokalipsiko** g.er.)* **1** *izond* San Joan Ebanjelariaren Apokalipsiari dagokiona; ikaragarria, lazgarria dena.

Irudi **apokaliptikoak** . Lutxo Egia

Turuta **apokaliptikoaren** ahots beldurgarria. Iñaki Mendiguren

Petrolioa eta euroa zaldi **apokaliptikoak** itzuli dira, eta euren ezpatakadek bi asteotako baikortasuna desagerrarazi dute. Berria - Ekonomia

Honela sortu zen Mendebaldeko margolarien eskola **apokaliptiko** bat, benetan abiapuntu berria izan zuena, argi eta garbi pintura erabiliz esperientzia espiritualak adierazteko inpresio bisualen ordez. Iñaki Mendiguren

Igande goizetako kai hegietako predikari **apokaliptikoen** iragarpenak. Itxaro Borda

ETA jaio zen urte berean idatzi zuen Arestik profezia **apokaliptiko** hori bere herriarentzat. Joseba Zulaika

Lurrikaren obsesio horrek (psikotiko batzuen fantasia **apokaliptikoek** bezala) ez ote zuen agerrarazten beraren barne-ezinegona, marraztean nonbait mendean hartzen saiatzen zena? Xabier Olarra

Aurreikuspen **apokaliptikoenen** arabera, munduko espezieen laurdenak edo erdiak desager daitezke mende honetan. Berria - Gaiak

Pentsalari frantziarraren teoria **apokaliptikoaren** arabera, izuaren eta segurtasun ezaren itzalak ilunduko digu begitartea datozen hamarkadetan. Berria - Mundua

Ni, ondo dakizuenez, ez naiz bereziki optimista, eta interpretazio **apokaliptikorako** joera handiagoa dut, nonbait. Iban Zaldua

Bere ikuspen **apokaliptikoak** ekarri zizkion gogora. Xabier Olarra

Karl Marxen filosofia **apokaliptikoak** klase-gerrari, proletalgoaren diktaduraren ondoren, gizarte-ordena berriak jarraituko diola aldarrikatzen du. Iñaki Mendiguren

Tuileries sutan, une **apokaliptiko** bat suntsimen unibertsaleko orkestraburu klandestinoek zuzendua jendetza basa hordi zoro bat manipulatuz, Komunaren aurkako ideologoen esanetan. Koldo Izagirre

Mundua aro nuklearrean sartuz geroztik, bi potentzia handien artean behin finkatu den terrorearen orekak begiratu gaitu gerla hotzetik gerla berora lerratzera, xake joko **apokaliptiko** horren estrategia-kalkulatzaile amerikar batek asmatu erregela ez baitugu beharrik ahantzi: bietatik batek irabazten duen ber, biek galtzen dute. Piarres Xarriton

Elementu horiek guztiak Izagirreren eskutik eta belarrietatik pasatu ondotik, soinu meta horretatik etengabe paisaia berriak, askorentzat post-**apokaliptikoak** , sortzen dira. Berria - Kultura

Kristau-printzipioetan oinarrituriko historia oro unibertsala, probidentziala, **apokaliptikoa** eta aldika banatua izango da nahitaez. Iñaki Mendiguren

2 (izen gisa)

Apokaliptikoen lanturuak gorabehera, gazte-jendeak gero eta gehiago irakurtzen du prentsa. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **film apokaliptiko** (3)

---

apokope *iz* hitz batek bukaeran hots bat edo gehiago galtzea.

Oihartzun luzatuari zegokionez epentesia deitzen genuena **apokopea** deituko dugu errepikapenak hitza laburtzen duenean. Iñaki Arranz

Hitz berdintsuak elkartzeko atsotitzek duten joera nabarmena da, eta ez dira gutxi **apokopearen** bidez sortutakoak. Iñaki Arranz

Oihartzun luzatuaren kasuan ikusi ditugun aldaerak aurkituko ditugu oihartzun murriztuan ere: hitzak hasierako letrak, tartekoak edo bukaerakoak gal ditzake, baina oraingo honetan aferesia, **apokopea** eta sinkopa dira, hurrenez hurren, hizkuntzalaritzari maileguan hartuko dizkiogun hitz bereziak. Iñaki Arranz

Beste testu batzuk, berriz, hitz, hots, letra, silaba eta abarren manipulazioetan oinarrituak dira (aferesiak, **apokopeak** , sinkopeak, permutazioak). Xabier Olarra

---

apokrifo **1** *izond* benetakoa edo autentikoa ez dena.

Ebanjelio **apokrifo** honen arabera, Juda izan zen Jesusen dizipulurik maiteena. Joseba Zulaika

Oteizaren testu **apokrifo** horretan ageri diren hiru arima horiek -telurikoa, abstrakzioarena eta iraultza kulturalarena- osagarriak izan litezke eta uste dut osagarri izan dituela

Oteizak bere ibilbide artistikoan. Anjel Lertxundi

Sasi-erreferentziak emateko garaian maisu, memoria **apokrifoak** idatzi zituen, eta baita errealitateari oso urrutitik atxikitzen zioten historia liburu banaka batzuk ere. Bernardo Atxaga

Elkarrizketa **apokrifo** bat. Pako Aristi

Egunkari **apokrifo** batek kontatzen digunez, ametsetan badarik ere, Oteiza Duchamp, Picabia eta Man Rayrekin elkartu zen Emak bakia etxean. Anjel Lertxundi

Nork ziurtatzen du gaur ehortzi eta omenduko dugun Romain Gary hori pertsonaia **apokriforen** bat ez dela? Joxean Agirre

Ez zuen jasaten auskalo zein mendetako baserritar **apokrifoz** janzteko ohitura hori. Iban Zaldua

Valentín Esterlich, Bartzelonako idazle iluna, existitu egin zen, eta *La asesina ilustrada*-ren bertsio **apokrifo** hura izan omen zen bere azkeneko lana. Iban Zaldua

Gizarte Siriakoa ez zen Aristotelesen lan benetako eta **apokrifoen** egilea, baizik eta garraiatzaile hutsa. Iñaki Mendiguren

Ez omen dago berekoikeria primitiboaren aldeko inolako frogarik, ez trukearen, hartu-emanen edo merkataritzaren aldeko joera **apokrifoaren** aldekorik, ezta norbere burua zerbitzatzearen aldekorik ere. Iñaki Heras

Otsoen ehizaren istorioa, larruzko estalkiena eta, are gehiago, erromatarrek eraikitako oroitzapenezko babeslekuarena gezur hutsa dira, eta Tito Livioren eta Martzialen aipuak, berriz, guztiz **apokrifoak**. Iban Zaldua

Dirudienez, titulu hauek **apokrifoak** dira eta ez dute beti laguntzen obraren nondik-norakoa garbi ikusten. Askoren artean

Batere **apokrifoa** ez dena, San Pedrotako sermoietan jasotako ondoriotako beste pare hau dator egun honi josia: San Pedrok zeruko giltzek. Pello Zabala

2 (izen gisa)

Apokrifoen erabilera eta hainbat motatako zentsurak eta manipulazioak ere aipatzen ditu egileak lanean. Berria - Kultura

Argi dago **apokrifoetarako** eta manipulazioetarako joera handia izan dela euskal balada zaharren inguruan. Berria - Kultura

3 *ebanjelio apokrifo*

Eta **ebanjelio apokriforen** bateko kutsua duen hau jaso du esplikazio: "Bazkari handi batean Pedrok sabela bete eta ezin gehiago jan. Pello Zabala

Ebanjelio apokrifo honen arabera, Juda izan zen Jesusen dizipulurik maiteena eta Jesusek berak, bere giza gorputzetik libratu nahirik, Judari eskatu zion traizio egin eta sal zezala. Joseba Zulaika

Baina Judaren ebanjelioa areago doa oraindik: Benetan maite banauzu, traiziona nazazu... Hori da, **ebanjelio apokrifoaren** arabera, Kristok Judari exijitu ziona. Joseba Zulaika

4 *liburu apokrifo*

Gero, **liburu apokrifo** baten (Kijote Avellanedakoa) argitalpenaz hitz egiten da, eta horrek aukera ezin hobea ematen dio Cervantesi imitatzaileari buruzko iritzi guztiz interesgarriak jakitera emateko (LIII. eta LIX. atalburuak). Patxi Ezkiaga

Baina **liburu apokrifoetan**, Eliz Amak ofizialtasun kanonekoa eman ez zien haietako batean -Santiagoren Protoebanjelioan, hain zuzen ere-, han ageri dira Maria Nazaretekoaren gurasoen izenak. Pello Zabala

---

apokrino *izond* guruinez mintzatzuz, sekrezioarekin zelula epitelialak galtzen dituena.

Izerdia ura da % 99 baino gehiago; odolezko izerdiari buruzko kontuek ez dute oinarririk, izatez, nahiz eta guruin **apokrinoek** izerdi gorria jariatzen duten hipopotamoetan, eta, oso gutxitan, gizakietan. Irene Aldasoro

Izerdi ekrinoak ez du usainik, baina gorputzak baditu izerdi guruin **apokrinoak** ere, besapeetan eta genitalen aldean kontzentratuak. Irene Aldasoro

---

apolinear *(orobat **apoliniar**) izond/iz* gizonezkoen edertasun ereduari dagokiona.

Nietzscheren ustez, artistak izaera dionisiarra du; indartsua da, bizia, mugikorra, eta ez **apolinear** razionalistak bezala, ordenatuegia eta lasaia. Askoren artean

Nahiz eta gaztetasuna eta "irudi **apoliniarra**" egozten zaizkion, zinemagintza "zibilizazio baten ilunabarra" delakoan dago Erize. Berria - Kultura

---

apoliniar ik **apolinear**.

---

apolitiko *izond* ideologia politikorik ez duena.

Epailea **apolitikoa** zen: hor konpon. Koldo Biguri

Bere istorioa kontatzeari ekin dio hitzen hodian daukan pasabide meharretik nola edo hala: **apolitikoak** ziren etxean, baina bazuten miliziano zaurituak sendatu izan zituen osaba medikua, horregatik atxilotu zuten, haren klinikako txoferra zelako. Koldo Izagirre

Bide batez norbaiti -biografoari ala biografiatuari?- urte horietan "Basque Club of Havana" hartako asko frankistak edo beste gehienak **apolitikoak** direna aipatzea ahaztu zaio. Edorta Jimenez

---

apologeta *iz* erlijio sinesmen baten defendatzailea.

Teknologiaren **apologetek**, saskibaloia bizkortu, ikuskizuna hobetu eta dibidenduak biderkatu egin direla esaten dute, baina, baita xarma eta etxekotasuna galdu ere. Berria - Kirola

---

apologetika *iz* teologiaren adarra, kristau fedearen dogmak defendatzen saiatzen dena.

Ez niz espantuka ariko edo polemikan edo **apologetikan**, baina hamar milaka girixtinoren erdian, ehun milaka gizonen erdian, lekuko niz 6.640 apez hil direla Buchenwald eta Dachau-ko kontzentrazio zelaietan bakarrik. Michel Oronoz

---

apologetiko *izond* apologiarena, apologiari dagokiona.

Horrek Santuaren eta ondorioz Ordenaren ospea handitzen zuen; baina zaletasun horrek helburu **apologetikoa** ere bazuen: miriariek argi eta garbi adierazten zuten Jainkoak gizona eta beronen obra onartzen zituela. Askoren artean

Azpilkuetaren Gutun **apoligetikoa**. Piarres Xarriton

---

apologia 1 *iz* zerbaiten edo norbaiten defentsa edo justifikazio sutsua, hitzez edo idatziz egiten dena.

"Sacrum Commercium" (Itun Santua) edota pobretasunaren **apologia**. Askoren artean

Manufaktura-lanaren, merkataritzaren eta kolonia-hedapenaren **apologia** ziren doktrina honen gai nagusiak, estatuaren indarra sendotzeari baitzegoen osorik emana. manufaktura-lanaren, merkataritzaren eta kolonia-hedapenaren **apologia** ziren doktrina honen gai nagusiak, estatuaren indarra sendotzeari baitzegoen osorik emana.

Koro Navarro

Smith-ek pasarte famatu horretan ez du, inondik inora, laissez-faire dogmatikoaren **apologia** egiten, XVIII. mendeko merkataritzak zituen oztopo askoren aurkako bere librekanbismo sutsua aldarrikatzen du. Iñaki Heras

Nik neuk, behinik behin, ez dut sekula hizkeren eta euskalkien **apologiarik** egingo, ez ditut sekula bedeinkatuko eta goraipatuko. Koldo Zuazo

2 (izenondoekin)

Esku artean duzun proposamena aldarri horren aldeko **apologia** zuzena da. Txema Ramirez de la Piscina

Horixe dirudi obra honek: pobretasunezko bizitzaren **apologia** sutsua. Askoren artean

Diferentziaren eta aniztasunaren **apologia** bikaina. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Faxismo espainolaren **apologia** disimulatugabe bat. Joxe Azurmendi

3 ***terrorismoaren apologia***

Astelehenean igorri zuen Luesmak lehen txostena Fiskaltzara, Donostian gertatutakoa **terrorismoaren apologia** delitua izan zitekeelakoan; eta atzo txosten zabalago bat bidali zuen. Berria - Euskal Herria

AVT kereila bat preparatzen ari da, horien guztien kontrakoa, **terrorismoaren apologia** egiteagatik, eta Auzitegi Nazionalean aurkezteko asmoa du. Berria - Kultura

Estatuaren Segurtasunerako Auzitegiak 15 urteko kartzela zigorra ezarri zien "**terrorismoaren apologia**» egiteagatik. Berria - Mundua

Hemengo demokrazian, gainera, ezin da libro mintzatu, ETAren jardunak askatasuna hurbildu digula jendaurrean esatea **terrorismoaren apologia** baita. Markos Zapiain

Izututa utzi nau iragarkiak, batez ere beste inor ez duela izutzen ikusita, agian neuk hain garbi dakusadana ez duelako beste inork ikusten: gaur egun, gastaketaren apologia egitea **terrorismoaren apologia** egitea dela. Pako Aristi

Terrorismoaren apologia edo antzeko zerbait iruditzen zaie nonbait. Xabier Mendiguren Elizegi

- **Terrorismoaren apologia** egin gura duzuela esango ditek! Koldo Izagirre

Eta horrek esan gura du, arras neutralki meditatzen hasi eta, deskuidoan bortxa komenigarria dela, ateratzen bazaizu, **terrorismoaren apologia** egiten duzula. Joxe Azurmendi

---

apologiagile *iz* apologista.

Larramendi, euskararen **apologiagile**. Koldo Zuazo

---

apologista *iz* apologia egiten duena.

Horrexegatik aldarrikatu zuten, Garibaik zein beste **apologistek** aurrena, erromantiko euskaldunek gero -adar makurtuak bezala erreakzionatuz, noski-, euskararen antzinatasuna. Bernardo Atxaga

Iturri hartatik edan zuten **apologistek**, euskaltzaleek eta nazionalistek, Krutwig agertu arte behintzat. Har dezagun euskara bera: honen jatorri ez-indoeuroparrak, honen apartekotasuna, honen enigma, honen balio berezia, eta holakoak entzungo genituzke edozein hizkuntzalari edo euskal **apologistaren** ahotik. Askoren artean

Origenes (185-254), exegeta, teologoa eta **apologista** kristaua. Juan Martin Elexpuru

Filosofia edo pentsamendu espainolaren inguruan ibili diren gorabehera luzeetan, aurreneko **apologista** patriotikoa (XIX. mendean) G. Joxe Azurmendi

Xabier Kintanak plazaratu du Etxepare eta Lazarragaren arteko kidetasuna; neuk pauso bat gehiago emango nuke, gaineratuz bien asmoek bat egiten dutela euskal letren alde eta Esteban Garibai bezalako **apologista** elkorren aurka. Berria - Kultura

Ez soilik prozesuaren **apologista** instituzionalen aldetik, baita aurkako erradikal sutsuen aldetik ere. Iñaki Heras

San Juan Ebanjelaria, Jesukristoren **apologistarik** argiena. Patziku Perurena

Orain dela berrehun urte, diferentziaren eta aniztasunaren benetako **apologista** izan zen Sade. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Historia ezaguna da euskararen **apologistena**, askotan kontatu eta maiseatu dena: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Kristau-**apologistek** zer erantzun ziezaioketen judu-salaketari: hau da, Elizaren praktika helenikoa bateraezina zela bere teoria judaikoarekin? Iñaki Mendiguren

Pacioli luma bidezko kalkuluaren **apologista** bilakatu zuen aljebrako lehenengo tratatu inprimatu horrek ez zuen emaitza berririk; XV. mendearen bukaeran mendebaldeak aljebraren alorrean zekienaren inbentario bat aurkezten zuen. Jon Muñoz

---

apologo *iz* kontakizun laburra, hitz lauz nahiz hitz neurtuz ondua, irakaspen moral bat daukana.

Poetikek eta eskuliburuek **apologoak**, alegiak genero txikien artean jasotzen izan dituzte, halako idazlanei mesfidati begiratu izan dietelako zenbait adituk. Berria - Kultura

Apologo honetan esandakoak, hutsaren hurrengo dira, ordea, liburu hau Txalapartan iragarri zenetik Ereinen argitara den arte bizi izan ditudan komedia subidealistekin konparatuz. Patziku Perurena

Apologoa ere izan ninteke: bazen behin gizajo bat munduz okertu zena. Monika Etxebarria

---

apomorfina *iz* morfinaren alkaloidea, oka eragiteko erabiltzen dena.

Behin ikusi nuen nola jarri zioten **apomorfina**-ziztada bat ezagutzen dudan parkinsondun bati, zurruntasuna eta "izoztea" arintzeko. Xabier Olarra

---

aponeurosi *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi) iz* kolageno zuntzez osatutako mintz izpitsua.

Aponeurosi bat lamina lautu formako tendoi barietate bat da. ETC-entziklopedia

Muskulu hau, aurreko biak bezala, alboetan zabala da eta marra zurira (xifoides apofisitik pubisera doan ehun konektibo gogorra) iristean **aponeurosi** bihurtzen da. ETC-entziklopedia

Aponeurosi eta muskuloen artean sortutako atxikimendu eta narritadurak suntsitzean datza, larruazalean aplikatutako kakoen bidez. ETC-entziklopedia

Depresio hau, **aponeurosi** klabipektoralaz mugatuta dago. ETC-entziklopedia

Lerro zuria **aponeurosi** bat da, egitura tendinotsu bat; gizakietan eta beste ornodun batzuetan abdomeneko erdiko lerroa beheranzko norabidean zeharkatzen du, abdomeneko aurreko bi muskulu zuzenen artean. ETC-entziklopedia

Muskuluak **aponeurosi** izeneko ehun konjuntibozko mintz batez inguratuta daude. ETC-entziklopedia

Anatomiari dagokionez, oin-zolako faszia ez da berez faszia bat, luzetara antolatuta dauden zuntz zuriez osatutako oinzolako **aponeurosi** tendinotsua baizik. ETC-entziklopedia

---

apoperrexil *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi) iz* perrexilaren antzeko landarea *(Anthriscus cerefolium).*

Apoperrexila edo perraitza ("Anthriscus cerefolium") Apiaceae familiako landare belarkara eta eskualde epeletan laboratzen dena da. ETC-entziklopedia

"Belar finak" espresioa lau belarretako nahasketa bat da: tipulina, **apoperrexila**, binagrera eta perrexila, Frantziako sukaldaritzaren oinarria osatzen dutenak. ETC-entziklopedia

Errezetaren eta eskualdearen arabera, "bouquet garni"ak albaka, apio hostoak, **apoperrexila**, erromeroa, azarria, estragoia, oreganoa, zilantroa eta porru hosto zati bat ere

izan ditzake. ETC-entziklopedia

Saltsa bearnesa gurinez, binagreraz eta tipulatxez maneaturiko gorringoz eta **apoperrexilez** egindako saltsa emultsionatua da, ardo eta ozpinetan prestatzen dena. ETC-entziklopedia

Jatekoak erosteko gogoa neukan: txahalkia saltsa zurian, legatza **apoperrexilarekin**, musaka berberea mikrouhin-labeetarako platerak [...]. ETC-literatura, saiakera

Bata baserriko erara, bestea tipulinez eta **apoperrexilez** atondua. ETC-literatura, saiakera

Belarren ernamuin edo begiak, uretan garbituak eta xukatuak (perrexila, **apoperrexila**, mingarratza eta albahaka; gehienbat albahaka egotea da garrantzitsua) . ETC-prentsa

---

apopillo ik **apopilo**.

---

apopilo *(orobat **apopillo** g.er.)* **1** *iz* ostatu batean edo norbaiten etxean bizi den pertsona.

Aulkitxo batean eserita ni, ezer egin gabe, **apopilo** bat bezalaxe. Joxe Austin Arrieta

Urtebete lehenago, aiseago sinetsiko nuen egiazko martiztar batekin partekatuko nuela bizitegia, gure anaia gazteenaren **apopilo** izanen nintzela baino. Aingeru Epaltza

Alarguntsa baten etxea zen, antza, diru pixka bat irabazteko **apopiloak** hartzen zituena, garai hartan askok egin ohi zuen moduan. Koldo Izagirre

Etxeko egin ziren txorikumeak anaiekin eta, haien eskuetan pausatuz, etxe osoan ibiltzen ziren, ez **apopilo** bezala, familiako bezala baizik. Askoren artean

Oso polita duk, ez nikek bere **apopiloa** izan gura. Koldo Izagirre

Morroia harri eta zur geratu zen, eta handik egun batera esan zion ezinezkoa zela hori; janari berezia egin behar zen; gainerako **apopiloek** ez zuten egoskaririk jan nahi. Josu Zabaleta

Lamelak berak erosten zuen beretzako ardoa, eta uste ezineko lekuetan gordetzen zuen, ostatuko gainerako **apopiloak** gelan sartu eta edango zioten beldurrez. Josu Zabaleta

Bere esanetan, antzeko suteak sortu izan dira ostatuetan eta gelak alokatzen dituzten etxeetan. **apopiloek** geletan bertan aritzen baitira su txikietan janaria prestatzen. Berria - Euskal Herria

Zure **apopiloa** izango naiz eta beti zuriz jantziko naiz. Joanes Urkixo

Zinegotziek dituzten datuen arabera, ostatuan nahikoa komun zeuden **apopiloentzat**. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

- **Apopilo** ederra zara, gero! Joanes Urkixo

Basurderekin jokatu duzun moduagatik, garbi dago ez zarela **apopilo** arrunta. Joanes Urkixo

Druida baten **apopilo** hutsa naiz. Joanes Urkixo

Luze gabe, emakume bat eseri zen laugarren tokian; ez zegoen antzematerik zer ote zen: ezkondua edo ezkongabea, senitartekoa, etxeko administratzailea edo **apopilo** arrunta. Jose Morales

Munduz kanpoko izaki horien esperientzia zuzena edukitzeko -Maupassantek bere **apopilo** beltzarekin eduki zuen bezala- egileak eromenaren esparruan edo aparteko beste zirkunstantziaren batean egokitu behar zuen. Bernardo Atxaga

La Platako Udalak ohorezko **apopilo** izendatu eta hiriaren giltza sinbolikoa eskaini ondoren, Buenos Airesko probintziako Botere Legegileak bereziki prestaturiko batzarrean parte hartuko du. Berria - Euskal Herria

3 (adizlagun gisa)

Donostira jun beharko det, zure etxera **apopilo**. Joxean Sagaztizabal

Baina baita neurriak hartu ere, horrelakoetan ez da haize jenero hori gurean **apopilo** gelditzen luzarorako: Ipar-euria, hogei eta lau orduko euria. Pello Zabala

Mundakar batzuentzat Argentina, Venezuela, Txile edo Kubako hilerriak direna da harentzat Mundakako hilerria: **apopilo** egoteko lurra. Edorta Jimenez

Bi motatako burutazioak: lehenengoa, igual nagusitasun intelektualaz ere ez nuela liluratuko; bigarrena, nire etxean **apopilo** egoteari buruzkoa, erraz imajinatzekoa da. Joxean Sagaztizabal

Bada beste gizon bat ere **apopilo**, erretiroa hartutako eskola-maisu bat. Oskar Arana

Apopilo hartzen gintuena zinema aretoko proiektatzailea zen. Berria - Kultura

Familiako baten bidez, Lazkaoko beneditarren komentuan hartu ninduten uda batez, **apopilo** eta ikasle. Joxerra Garzia

4 ***apopilo egon***

Alderantziz, oso ondo neritzon: gazte-gaztetandik neure kontura bizitzen ohituta, onuragarria gertatu zitzaidan bizimodu berria, Flora eta bere ama askoz hobeto arduratzen zirelako nire behar guztiez ordu arte **apopilo egonda** ezagutu nituen etxekoandre guztiak baino. Ramon Saizarbitoria

5 ***apopilo-etxe***

Mooney andrea, zeinak harategiko negozioan geratzen zitzaion dirua atera eta **apopilo-etxe** bat jarri baitzuen Hardwicke Streeten, emakume handi sekulako bat zen. Irene Aldasoro

Teilatupean bazen **apopilo-etxe** bat ere, goitik behetik bezain zabala zen galiziar andre ezkel batena, izenez Paca. Josu Zabaleta

Alokairua partekatzen duten familiek, gehienez, 154 euro jasoko dituzte; **apopilo etxean** bizi direnek, 150 euro, eta ostatu saria ordaintzen dutenek, 70 euro baino ez. Berria - Euskal Herria

Lamela Lavapies plazako **apopilo-etxe** batean bizi zen: gelatxo txiki bat zuen, nahasia, eta ohean sartuta ikasten zuenez, ikasten zuenean, askatu egiten zituen liburuak, eta plegu soltetan askatuta gordetzen zituen, kutxan edo mahai gainean zabalduta. Josu Zabaleta

Non gertatzen da? Bilbon? **Apopilo etxe** kaskar batean? Bernardo Atxaga

Laureano han egoten zen sarritan, bazkaldu, afaldu eta lo Agustinarenean, **apopilo etxean**, egiten bazuen ere. Jon Maia

Orduan kasualidade gogoangarri batez, **apopilo-etxean** neure etxejaunaren eta kanpotar baten arteko solasaldi baten lekuko izatera gertatu nintzen, pareta bat tarte, gizona zuzenean ikusi gabe. Matías Múgica

Haiek arrantxoa deitzen dutena bazkaltzen dute azkar **apopilo-etxeetan** eta, luxu pixka baten beharra dutenez, otorduaren ondotik hona etortzen dira, kafea hartu eta pokerrean jokatzera. Monika Etxebarria

Portu-hiri guztietan bezala, Triesten ez zen ostaturik eta **apopilo-etxerik** falta, leiho eta ezkaratz askotan ikusten ziren eskuz idatzitako iragarki txikiak, batzuk alemanez eta ingelesez, oheak eskaintzen. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apopilo etxe** (7); **apopilo etxea** (6); **apopilo etxean** (4); **apopilo etxera** (5); **apopilo zegoen** (4)

---

apoplegia ik **apoplexia**.

---

apoplejia ik **apoplexia**.

---

apoplektiko *izond* apoplexiarena, apoplexiari dagokiona.

Orain biribil-biribila zen; buia erraldoi bizi bat zirudien txerri-begiekin, eta eskuak eta hankak era arraroan ateratzen zitzaizkion, eztanda txiki **apoplektikoak** bezalako hotsak eginez, airean gora zihoan bitartean. Iñaki Mendiguren

Gero, udare barietateak, udare zuriak, ingalaterrakoak, beurre udareak, San Joan udareak, dukesak, batzuk potoloak, beste batzuk luzeak, beltxarga lepoekin edo sorbalda **apoplektikoekin**, sabelak horiak eta berdeak, karmin pittin batez edertuak. Karlos Zabala

---

apoplexia *(orobat **apoplegia** g.er., eta **apoplejia** g.er.) iz* funtzio zerebralen deuseztea, enbolia batek edo burmuin hemorragia batek eragina.

Istripuaren ondorioz **apoplexia** edo garuneko lesioren bat jasana izango zuela usterik, medikuari deitu zion, eta hark berehala antolatu zuen guztia erietxean proba batzuk egiteko. Xabier Olarra

Hirurogei urteko emakume baten kasua azaldu zuen: ezkerreko hemisferioko lobulu okzipitalean erasan zion **apoplexiaren** ondorioz, grisaren gamako koloreetan ikusten hasi zen beraren ikus-eremuko eskuinaldean zegoen guztia (ezker aldekoa, berriz, kolore normaletan). Xabier Olarra

Apoplexiak eman zion; nik emandako disgustuen eraginez, esan ohi zidan Florak. Ramon Saizarbitoria

Tea hartzen ari zen bitartean, **apoplexiak** jo zuen. Jon Muñoz

Apoplexiak jo zuenetik pena ematen zuen gajoak. Ramon Saizarbitoria

Hiru egun koma egoeran zeramatzan Poek, larunbatean **apoplexia** bat jasan ostean. Berria - Mundua

Andaluziako autore batek Sareptako emakumearen semeari buruz esan zuen hark arnasa egiteari utzi ziola, harengan hatsik ez nabarmendu arte, batzuetan **apoplexia** edo itomen histerikoen kasuan gertatzen den bezala. Xabier Kintana

Halako batean, txatarrategiko nagusi zahar samar hura **apoplexia** atake batek jota hil zen puru bat erretzen ari zela, eta horrela amaitu zen bere istorioa. Pello Lizarralde

Kardiopatien eta Garun **apoplexien** Atlasa argitaratu du Osasunerako Mundu Erakundeak. Berria - Gaiak

Adituen ustez, urtero 20 milioi pertsona hilko dira kardiopatia eta garun **apoplexien** ondorioz 2020a bitartean. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apoplexiak jo** (3)
> **garun apoplexien atlasa** (3)

---

aporia *iz* ezin gaindituzko zailtasun edo oztopoa.

Hau bai, paradoxa da, **aporia** ez bada. Joxe Azurmendi

Aporian zetzan sistemaren sadismo haren mukurua: errespetu eza zekarren errespetuak. Joxan Elosegi

Barkamenari ez dagokio beste "esanahi"rik (helbururik, ulermenik), bere eromena, ezintasuna, **aporia** izan ezik. Joseba Zulaika

Horrela begiraturik ikusten da Kierkegaarden parabolak zer nolako gaurkotasuna duen; hau da, erantzukizunaren azken obligazio eta **aporia**, eta, bide batez, etikaren azken burla, giza sakrifizioa da. Joseba Zulaika

Hegelen *Espirituaren Fenomenologia*-k dioenez, gustuaren juzguaren **aporietatik** ihes egin nahi baitu, estetikak ez du Edertasuna aztertu behar, artearen eginkizuna baizik. Josu Zabaleta

Ordena doble honek (baldintzagabea eta baldintzatua, heterogeneoa baina zatiezina, legearen gainetik baina legearen baitan) **aporia** egoeran uzten gaitu, Derridarentzat "irtenbiderik gabea" gainera. Joseba Zulaika

---

aportaketa *iz* aportazioa.

Ezinbestekoa da alderdikideen **aportaketa** guztien onarpena. Koldo Zuazo

---

aportatu, aporta(tu), aportatzen du *ad* ekarpena egin.

Guk zer **aportatu** behar diogu gure herriari? Pako Aristi

Sentitu izan dut ez diodala ezer **aportatu** jendeari, baina denetik egin beharra dago, eta denetik ikasten da. Berria - Harian

Hori oso larria iruditzen zait eskuinak agindu arren gauzarik interesgarrienak ezkertiarrek **aportatu** dituzten herri batean. Pako Aristi

Valdesek dioenez, ideologien gainetik, Oskarbik "kantuak **aportatu** zizkion" 60ko hamarkadaren amaieran sortutako mugimenduari. Berria - Kultura

Zaharrak dira gaztetan ere, mundura gurasoen bizitza errepikatzera soilik etorri balira bezala, ezer **aportatu** gabe. Pako Aristi

Beteranoek beti utzi digute bidea lan egiteko eta **aportatzeko**; taldeko gazteok inoiz ez dugu mugarik izan, eta horrek ere aberastu egin du taldea. Berria - Kultura

Izan ere, txorakeriak **aportatzeko** hobe da isilik egon. Harkaitz Cano

Egunean **aportatu** beharreko proteinak -gramo bat, gizakiaren kiloko- erraz erdiets daitezkeenez, baliteke haragiaren kontsumoa dezente jaitsi edo erabat jateari utzi eta landarezkoekin moldatzea. Edorta Agirre

---

aportazio *(ETCn **357** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ekarpen** agertzen da) iz* aportatzea, ekarpena egitea.

Ardura alderdiei dagokigula argi izanik, laguntza eta **aportazio** guziak ongi etorriak dira. Berria - Harian

Fagorren finantza **aportazioen** jaulkipena amaituko da bihar. Berria - Ekonomia

Artista ezagutzen du mundu guztiak, bera dabil jende artean, bera da txalotua, omendua, berea da kulturari egindako **aportazioaren** meritua. Pako Aristi

Baina Matiasek ez zekien berezkoak ziren mantxa marroiak, hau da, dekoratzaileren batek eginak, ala dutxa horretatik pasatutako pertsona guztien **aportazioak**. Unai Elorriaga

Militanteen **aportazioak** garrantzitsuak izaten ari dira kanpaina ordaintzeko. Berria - Euskal Herria

Laguntza publikoarekin eta kalera joan daitezkeen langileen **aportazioekin** osatuko litzateke aseguru hori. Berria - Ekonomia

Fagorren finantza **aportazioen** jaulkipena amaituko da bihar. Berria - Ekonomia

Emaztearen ilunpearekin ordainduta dago askotan artistaren argi distiratsua, artista jende aurrera daraman indar hori emazteak ere elikatu duelako beste **aportazio** pertsonal batzuekin. Pako Aristi

Aportazio pertsonal gisa, aspaldi idatzitako ipuin bat erantsi nion. Xabier Mendiguren Elizegi

Egindako lanen artean Coco Chanelen maitalea izatea da aipatzekoa, eta Chanel n1/4 5ean argitu ez den **aportazio** ilunen bat ere bai. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

aposizio *(corpusean ez dago; ETCn **557** agerraldi) iz* hizkuntzalaritzan, bi izen edo bi izen sintagma elkartuz eratzen dena.

Aposizio kategoria gramatikal bereko bi hitz elkartuz eratzen den joskera da, non bigarren hitzak lehenengoa zehazten baitu. ETC-entziklopedia

Utopia bat zela, ez zenez ezagutzen ezagunetik ezezagunerako metodorik: mugagabetasun bat, era berdinean mugatu bihur zitekeena, magnitude berdin edo desberdineko

gorputz baten edo gehiagoren suposiziozko **aposizioz**. ETC-literatura, saiakera

Bukaeran, **aposizioei** buruzko zati laburtxoago bat ere badago. ETC-literatura, saiakera

Gehitu honi noiz entzuten duen batek "marokoar jatorriko espainiarra" **aposizioa**, zer albisterekin lotzen dugun esan beharra, noiz ematen diren denok ditugun jatorriak eta noiz ez dagoen esan beharrik. ETC-prentsa

Besteak beste, idazkera arauak, gramatikako huts sarriak, atzizkiak, esaldien osaera, **aposizioak**, aditza eta esaldia, kazetaritza eta orainaldia, deklinabideko gorabeherak, hainbat aditzen erabilera, nominalizazioa, perpaus erlatiboak, puntuazioa, hiztegi batua eta adierazpenak. ETC-prentsa

Edo **aposizioan**: "Hauxe da bakarra, berarekin edonora joango nintzatekeena", eta abar. ETC-prentsa

Pertsonaiaren kargua aipatu behar denean, komenigarria izaten da lehenengo kargua aipatu eta ondoren izen propioa esatea; hots, ez da **aposizioa** erabili behar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Berton **aposizio** kontuak ageri dira; izan ere, hiru-lau unitatetan hainbat aztergai edo problema konpontzerakoan, **aposizio** bidez konpondu behar izan ditugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Halakoak ez egitekotan, ohiko konponbideak erabili izan dira (**aposizioa**, elipsia, errepikatzea, hitz-elkarketa...). ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, garatzen ari den kartilagoaren tamainaren hazkundea faktore hauen araberakoa da: (1) **aposizio** bidezko hazkundea (zelulak kanpoaldean gehitzen dira); eta (2) hazkunde interstiziala (zelulen artean, gero eta matrize hialino gehiago metatzen da). ETC-zientzia, zuzenbidea

Euskaraz dihardugun zientzialarien artean sigla hori bere horretan erabiltzeko ohitura dago, askotan **aposizio** modura adieraziz, hots, "SI sistema" esanez, nahiz eta sigla hutseko formak ere erabiltzen diren, "SIko unitateak" adibidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi motatako hazkuntza jasan dezake kartilagoak: hazkuntza interstiziala (muinetik kanpora gauzatzen dena) eta **aposiziozkoa** (periferiatik garatzen dena). ETC-zientzia, zuzenbidea

Euskarazko prosak dituen joskera-koska zalantzarik gabe gogorrenak, egunero nabari denez, zuzen-zuzenean loturik daude IS egiturarekin: **aposizioak** eta nominalizazioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aposta *adlag* nahita.

Batek, buelta emanda, **aposta** egin duela pentsatuz, berriro martzianoarengana bultza du, eta txito bustia, itsumustuan harrapatu duen eraso hark bere zentzua ustegabetu bailuen, basoaren bila hasi da, lurrean aztarrika. Pako Aristi

---

apostasia *iz* apostatatzea.

Apostasia Elizaren kontrako errebolta da, sinesmenaren ukoa baino gehiago. Berria - Harian

Mendietaren esanetan, nahiz eta **apostasia** eskubide bat izan, trabak besterik ez dituzte jartzen. Berria - Harian

Historikoki, deskonbertsio publikoari **"apostasia"** deitzen zitzaion. Joseba Zulaika

Egunotan modan jarri da **"apostasia"** egitea, norberak kristau nortasuna bazterturik duela adierazteko. Joseba Zulaika

Irizpide hau oso zabalduta dago kristaudian eta arrazoi naturalaren **apostasia** egiten dutenen kopurua ia amaigabea da. Esteban Antxustegi

Kristautasunetik islamera pasatzeko ez da **apostasiarik** egin behar. Berria - Harian

Gotzaindegiko zigilua zuen eta **apostasia** eskakizuna jaso zutela zioen. Berria - Harian

Apostasia agiria lortzeko, nahikoa da norberak bataiatutako parrokiara eskutitz bat bidaltzea **apostasia** egin nahi duela eta zergatik egin nahi duen azalduz. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apostasia egin nahi** (5); **apostasia egiteko** (5)

---

apostata **1** *iz* bere erlijioa publikoki abandonatzen duen pertsona.

Orduan anai Elias, munduko gizon jakintsuena bezala zeukaten hura, Frederiko erregeak eskatuta, beronen alde jarri zen eta Elizaren aurrean matxino bihurtu zen eta Ordenaren aurrean **apostata**. Askoren artean

Eta hortik aparte, noiztik bidaltzen dio **apostata** batek dibortzio agiria emazteari? Koro Navarro

Fedegabeak eta **apostatak** Islamaren zein Gerra Santuaren aurka borrokatzeko bildu arren, garaitu egingo ditugu, egiten dutena egiten dutela. Berria - Harian

Eliza bera ere harritu egin zela dio, ordura arte ia **apostata** bakarrak, beste erlijio batera pasatutakoak zirelako, hala nola Jeovaren lekukoak. Berria - Harian

Dena den, espero dut ni jada **apostaten** zerrendan egotea. Berria - Harian

2 (izenondo gisa)

Nik hamabi urte doi nituenez, zer ulertu ote nuen izenik oroitzen ez diodan apaiz alkoholizatu eta **apostataren** fede-arazoez eta krisi existentzialaz? Anjel Lertxundi

Inoiz gerta baledi -ez al da gertatuko!- anaiaren batek sosa edo dirua hartu nahiz edukitzea -aipatu den gaixoen premiaren kasu bakarra izan ezik-, anaia guztiok eduki dezagun hura anaia faltsu, **apostata**, lapur, gaizkile eta poltsazaletzat, benetan damutzen ez bada behintzat. Askoren artean

Ez ote daukat osabaren bat basakeriara itzulia Suez-etik ekialderantz, kortxozko kaskoa buruan, *jodhpur*-ak oinetan eta mingostasuna ezpainetan, zuhaitz genealogikoetako fruitu ustela izaten diren pertsonaia arrunt horietarik: adaxka gazte, poeta **apostata**, ohorez, susmoz eta oroimenez beteriko desohoratuak...? Xabier Mendiguren Elizegi

Esandakoak esan ditugu inork ere pentsa ez dezan aingeru **apostatez** mintzo garenean beste jatorriren bateko izatasuna zutela edota Jaungoikoa ez dela euren izaeraren egile. Imanol Unzurrunzaga

Taldeak atzo ohartarazi zuen "gobernu **apostataren** aurka eta Irak, Palestina, Afganistan eta beste herrialde batzuetako Jihad borrokaren alde" ekingo duela. Berria - Mundua

Ebazpenak **apostatatzat** jotzen du buruzagia eta hura salatzeko eskatzen die musulmanei. Berria - Harian

---

apostatu, aposta(tu), apostatzen du *ad* apustu egin.

Dirua **apostatu** dutelako gure alde. Pako Aristi

Eta pentsatuz, edo **apostatuz**, pariatuz eskualdunagoa izanen dela, hortakotz nahi niken datorren mendean bizi. Menane Oxandabaratz

- **Apostatu**? Jon Arretxe

---

apostolatu *iz* apostolutza, kristau doktrinaren irakaskuntza eta zabalkundea.

Eta hildako andrearen nahia bereziki sakratua da guretzat, denok maite genuelako, goresten dugulako eta bere lan miresgarria **apostolatutzat** hartzen dugulako. Koldo Biguri

Kafe-soroak ugaldu ziren bitarte horretan, aita Romeroren irrikak beste bide batzuetatik bideratu ziren, esan nahi baita apaizaren su ebanjelikoak eta **apostolatu**-antsiak politikara bideratu zirela, gizarteko joera atzerakoi eta eskuinekoen aldera bideratu ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

apostoliko **1** *izond* apostoluena edo beraiei dagokiena; apostolatuari dagokiona; Aita Santuari dagokiona.

Jainko Jauna Eliza santu katoliko eta **apostolikoaren** baitan zerbitzatu nahi duten guztiei. Askoren artean

Honorio Gotzainak, Jainkoaren zerbitzarien zerbitzariak, seme maite ditudan anai Frantzisko eta Anaia txikien Ordenako beste anaiei: osasuna eta bedeinkapen **apostolikoa**. Askoren artean

Guk, bada, zuen eskari jainkotiarrei amore emanez eta gotzain hark egin zuena ontzat eman eta ederretsiz, aginpide **apostolikoaz** berresten dugu eta idazki honen babesaz finkatzen, 9 gutun hura hitzez hitz hemen sarraraziz. Askoren artean

Beraz, eta zuek eskatu bezala, geure babes **apostolikoaz** berresten dugu pobretasun txit gorenean bizitzeko duzuen asmoa, eta idazki honen aginpideaz jabetzarik onartzera inork behartu ez zaitzaten eskubidea ematen dizuegu. Elizen arteko biblia

Ohitura du Aulki **Apostoliko** honek eske datozkionen nahi jainkotiar eta desira eokiei harrera ona egitea. Askoren artean

Espainia Eliza bat da, eta horko politika erlijio katoliko **apostolikoa**. Joxe Azurmendi

Aita **apostolikoa**: hitzok Erdi Aroan Aita santua adierazten zuten sarri. Askoren artean

2 ***bikario apostoliko*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Gerora, ordea, Tripoliko **bikario apostolikoak**, Giovanni Innocenzo Martinelli gotzainak, baieztatu zuen albistea. ETC-prentsa

Behin Hué-ko **bikario apostolikoa** izanik, hango seminario haundiaren buruzagi izan zen. ETC-prentsa

Jesusen Bihotzaren Comboniar Misiolariak ordenaren kidea, 1995ean Joan Paulo II.ak Esmeraldasko **bikario apostoliko** eta Cellae in Proconsulariko gotzain izendatu zuen. ETC-entziklopedia

3 ***legatu apostoliko*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

1946ko maiatzaren 13an Pio XII.a aita santuak bere **legatu apostolikoa** zen Benedetto Aloisi Masellaen bidez Fátimako agerpena izan zeneko kaperari koroatze kanonikoa eskaini zion. ETC-entziklopedia

4 *nuntzio apostoliko* ik **nuntzio**.

5 ***prefektu apostoliko*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Saint-Pierre eta Mikeluneko **prefektu apostoliko** (1899-1915) eta Orango (1915-1920) eta Périgueuxko apezpikua (1920-1931) izan zen. ETC-entziklopedia

Pedro H. Sarrionandia Marokora heldu zenean, Jose Lertxundi zen Misio haietako **Prefektu Apostolikoa**. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aulki apostolikoaren** (4)
> **aginpide apostolikoaz** (3); **apostolikoaz berresten dugu** (4)

---

apostolo ik **apostolu**.

---

apostolu *(orobat **apostolo** g.er.)* **1** *iz* Jesukristoren hamabi ikasleetako bakoitzari eta San Paulo eta San Bernaberi ematen zaien izena.

Jesusek hamabi **apostoluak** izendatu.

Jesus **apostoluei** agertu zitzaien bere heriotzaren ondoren eta bizirik zegoeneko froga asko eman zizkien, berrogei egunez bere burua ikustera emanez eta Jainkoaren erregetzaz hitz eginez. Elizen arteko biblia

Nik, Pedrok, Jesu Kristoren **apostolu** honek, Ponto, Galazia, Kapadozia, Asia eta Bitiniako lurraldeetan atzerritar bezala sakabanaturik bizi zaretenoi idazten dizuet. Elizen arteko biblia

Jainko ahalguztidunaren, Aita eta Seme eta Espiritu Santuaren, Maria Birjina dohatsuaren eta Pedro eta Paulo **apostoluen** gorespen eta aintzarako eta Erromako Eliza aintzatsuaren osperako. Askoren artean

Apostoluen Buruaren aldarera hurreratu zenean, erromesek egiten zituzten limosna kaskarrengatik harrituta, eskua bete diru bota zuen, honela adieraziz Jainkoak besteen gainetik ohoratu zuen **Apostoluak** ohore berezia merezi zuela guztien aldetik. Askoren artean

Handik gutxira, Frantzisko dohatsuak iragarri bezala, aipaturiko Ostiako jauna **Apostoluen** Aulkirako aukeratu zuten, eta Gregorio IX.a izena hartu zuen. Askoren artean

Errebelazioak argitu zuen Paulo **apostolua** Damaskorako bidean eta hark eman zion kristau fedea. Josu Zabaleta

Noiz edo noiz apaizik eskura ez badute, aitor biezazkiote bekatuak anaia bati, Santiago **apostoluak** dioen bezala: Aitortu batak besteari zeuen bekatuak. Askoren artean

Jesukristok berak ere **apostoluetarik** hiru izan zituen maiteenak, ebanjelioek dioskutenez. Gotzon Garate

Besteak **apostolutzat** hartu nahi ez banaute ere, zuek behintzat hartu behar nauzue, zuek kristau izatea baita **apostolu** naizenaren froga. Elizen arteko biblia

2 (izenondoekin)

"Aspaldian **apostolu** sainduek eta haien ondokoek erabakia dute eta gaurdaino Eliza Saindu Katolikoak aitzineko erabaki haien arabera sinesten du, ez dela zilegi Erromako Apezpikuaren baimenik gabe ez kontziliorik biltzea, ez apezpikurik kondenatzea. Piarres Xarriton

Gizon hau, **Apostolu** santuen hilobia bisitatzera joan zen, haien merezimenduei esker osasuna eskatzera. Askoren artean

Norbaitek Frantziskok jasandakoak zenbatu nahi balitu, **Apostolu** santuek jasan zituzten atsekabeei buruz idatzitakoa gaindituko luke. Askoren artean

Eska diezaiegun, bada, Ebanjelioko harribitxi honen maitale sutsu izan ziren Kristoren **apostolu** txit santuei, lor diezagutela Jesu Kristo gure Jaunarengandik grazia hau: [...]. Askoren artean

K.a. laugarren mendeko Gizarte Helenikoa eta kristau-aroko hamaseigarren mendeko Mendebaldeko Gizartea ez ziren bakarrik lotsatuta geratu beren **apostolu** militanteek zertutako basakeriagatik; horrek suntsitu ere egin zituen. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan; ik **apostoliko**.)

Erlijiosoak santutasun-ispilu ziren, eta jende santu asko hilobi zurituen itxurakeriaz kutsatu gabe zegoen oraindik, eta **apostolu**-itxuraz mozorrotzen direnen irakatsiek ere ez zuten jakin-min handirik sortzen. Askoren artean

Ahultzen eta hustutzen dute hasiberrien barrena, eta arima epeltzen dute izpirituzko bizitzan, graziaren berotasunean, jaieran, naturaz gaindiko sendotasunean, jainkozko gauzetarako gogo beroan, **apostolu**-arretan. Joan Mari Lekuona

Eskerrak ematen dizkiot Kristo Jesus gure Jaunari, nire gain bere **apostolu**-zerbitzua uzteko fidagarri aurkitu nauelako eta zerbitzu hori betetzeko indarrak eman dizkidalako, Aita santuak bere **apostolu**-aginpidez bidali zuelako, konfiantzaz eta ausardiaz jokatzen zuen gauza guztietan, inolako zurikeria eta lausengutan ibili gabe. Elizen arteko biblia

Aita santuarena baino beheragoko jurisdikzio guztitik libre utzi zuen eliza hau eta, bere **apostolu** aginpidez, Anaia txikien Ordena osoaren ama eta buru izendatu zuen. Askoren artean

Garai hartan, Lyongo Behartsuak deitzen diren horietako bat ikusi genuen **Apostolu** Aulkiaren aurrean bere maisu batekin, Bernardo izenekoa uste dut. Askoren artean

Eta ez daitezela mojen monasterioetan sar, **Apostolu**-Aulkiak emandako baimen berezia dutenak izan ezik. Askoren artean

4 irud/hed

Tolstoi **apostolu** bat da, eta **apostoluek** beren egiak esaten dituzte, baina besteentzat ergelkeriak baizik ez dira gehienetan. Josu Zabaleta

Berak burdinazko balio moral ziurren **apostoluak** direnean, balioen erlatibismoa ETAren apologia dela, ulertzen dizute. Joxe Azurmendi

Kosmoseko aingerua, justiziaren **apostolua**! Juan Kruz Igerabide

Hori ikusirik, Errusiako intelektual aurrerazaleek zorrotz kritikatu zuten, eta, besteak beste, "zartailuaren predikaria eta buru-iluntasunaren **apostolua**" deitu zion Belinski literatur kritikari ospetsuak. Jose Morales

Esta-tu-Nazio horren **apostoluek** irri egiten dute nazionalismo periferikoen etnizismoaz. Joxe Azurmendi

Kontrario handia C. Sánchez Albornoz izan du, Espainia eternalaren **apostolu** eta apologista. Joxe Azurmendi

Unamuno hau da, herri espainol intrahistorikoaren erredentore, eta horren salbazioaren amorez Estatu oligarkiko eta zentralistaren **apostolu** bilakatua, Bilbora etorri dena -ez Lore Juglare, baizik aita misiolari (**"apostolu** zibila"). Joxe Azurmendi

Gastronomoa, Gehiegiaren **apostolua**, aintza zuri, // sobera janda ez gaizkitzeko trebatua zaren hori. Xabier Olarra

5 *apostoluen sinbolo*

Mendiak **Apostoluen sinbolo** dira Erdi Aroko exegesian; hemen kardinalei buruz esana dago. Askoren artean

6 *hamabi apostolu* *pl*

Hiriko harresiak hamabi oinarri zituen, eta hauetan idatziak Bildotsaren **hamabi apostoluen** izenak. Elizen arteko biblia

Gondoleroak **hamabi apostoluen** argazkia eta salakota seinalatu zituen; gizajaleek onespen keinua egin zuten, "ekarri, ba" edo esanez. Jon Alonso

Eta **hamabi Apostoluetako** batek -Judas Iskariote zeritzanak- Kristo salduz, apostolu izateari uko egin eta bere burua urkatu zuen. Askoren artean

Manifestariak katedralera iritsi ziren, eta sutsuenek akuilaturik, ataria apaintzen zuten **hamabi apostoluen** bai eta beste itxura ttipiago batzuen puskatzen hasi ziren. Elena Touyarou

Pazko-arkumea **hamabi apostoluekin** jan, eta hilko zela adierazi zien: "Egiaz diotsuet: zuetako batek salduko nau". Patxi Altuna

Jakue, **hamabi apostoluetatik** bat, martiri hil zen Jerusalemen, 44. urtean. Berria - Harian

Jondoni Petriren Eliza berari behatuz ikusten dira **hamabi Apostoluen** eta Elizako saindu ainitzen harrizko itxurak. Herria

Dolcinori laket zitzaion errefektorioan lanpararen estalkiari begira egotea, non **hamabi apostoluak** ageri baitziren pintaturik, zurezko sandaliak oinetan eta kapa koxkorrak soinean. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apostolu aulkiaren (3); **apostolu bat** (3); **apostolu izateko** (3); **apostolu naizen honek** (7); **apostolu txit** (3); **bere apostolu** (5); **beste apostolu** (3); **jesu kristoren apostolu** (5); **kristoren apostolu naizen** (3)

apostoluak deitu (3); **apostoluak dio** (3); **apostoluak dioen bezala** (5); **apostoluak dioenez** (5); **hamabi apostoluak** (3); **horregatik dio apostoluak** (5); **oteizaren apostoluak** (3); **paulo apostoluak** (7)

santiago apostoluaren (3)

apostoluek eta arduradunek (3); **beste apostoluek** (3)

apostoluen artean (5); **apostoluen aulki** (3); **apostoluen biziera** (3); **apostoluen bizierari** (3); **apostoluen buruak** (3); **apostoluen esku** (3); **apostoluen postala** (3); **hamabi apostoluen** (7)

---

apostolutza *(orobat **apostulutza** g.er.) iz* kristau doktrinaren irakaskuntza eta zabalkundea.

Arazo zaharrak ziren ordurako: ea anaiek erlijioso Ordena tradizionalen erakoak izan behar zuten, Ebanjelioko pobretasuna nola gorde, lehentasuna otoitzak ala **apostolutzak** zuen, nola ulertu behar zen agintariekiko obedientzia, etab. Askoren artean

Lan asko egin zuen Jaunaren mahastian: saiatu eta gartsu otoitzean, barau eta bijilietan, prediku eta **apostolutza** ibilaldietan. Askoren artean

Egunez hiri eta herrietara doaz eta jendea irabazten saiatzen dira, **apostolutza** lanean jardunez; gauez, berriz, leku bazter eta bakartietara itzultzen dira, han kontenplaziora emanik egoteko. Askoren artean

1903ko "Sobre el criollismo" artikuluan, panhispanismoaren **apostolutzan** sartua honezkero, espainolak nola ez duen gaztelania estriktoa izan behar, baizik herri (alde) ezberdinen espresio ezberdina (herri penintsularrei erreferiturik ja *En torno al casticismo*-n agertzen den ideia), eskualde hispanoamerikarrei zabaltzen zaie: horiek ez dute hizkuntza nazional berriak sortzera jo behar. Joxe Azurmendi

PAULO BERE **APOSTOLUTZAREN** ALDE.

Hara zer den "euskal ikusle-entzulea", non eta zerbaitetan bada hain justu kontu elementalotan **apostolutza** luzea daraman egunkari honetan. Iñigo Aranbarri

Bakean utzi gintuzten hala ere, igande goizetan kapitaina etortzen zitzaien hiriburuko komandantziatik eta estibatzaileen jangelan Itsas-**Apostulutzako** kapilauak ematen zuen mezetara eramaten zituen galaz jantzita.Epikuroar jatorra zen aldetik, Andresek ez zuen batere joerarik **apostolutzarako**. Koldo Izagirre

Han baiginuen biltzar bat, Itsas-**Apostolutzaren** nazioarteko batzordea deitzen dugunarena. Herria

---

apostrofe ik **apostrofo**.

---

apostrofo *(orobat **apostrofe**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **apostrofo** agertzen da) iz* ortografia-marka, bokal baten edo gehiagoren elisioa adierazteko erabiltzen dena.

Gogora dezagun, Sabino Aranaren aldakuntzak zirela eta, anabasa handia zegoela **apostrofoa** eta marratxoa erabiltzeko orduan, eta bazen gauzak bideratzeko beharra. Koldo Zuazo

transkripzioan **apostrofo** biribilduaren itxurako diakritikoa gehitzen zaio herskari arrunten ikurrari (adib., p'). Lourdes Oñederra

Poemak "Lurra" zuen izena; izan ere, planetaren deskribapena zen, eta ez zen falta noski bertan digresio pintoreskoa eta **apostrofe** beregainekoa. Juan Garzia

---

apostu ik **apustu**.

---

apostuka ik **apustuka**.

---

apostulari ik **apustulari**.

---

apostulu ik **apostolu**.

---

apostulutza ik **apostolutza**.

---

apota ik **apote**.

---

apote *iz adkor* apoa.

Abuztuko nire goizetako bainu bakarti haieta ko urmaelean zebiltzan orain basurdeak, baina abuztuan zehar ni egunsentiko bakardadean nenbilelakoan, eta bitartean **apote** hura niri begira eta zelatan. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire ahulezian ez nintzen argitasunez pentsatzeko ere gauza, baina maiz pasatu zitzaidan burutik zertan geratu ote zen halako irrikaz begiratzen zidan **apote** hura: basoan kukutzen den piztiaren gisan zain ote zegoen, ni noiz osatuko? Xabier Mendiguren Elizegi

Sinetsiko didazue sei hilabete daramadala **apote** hau bezatu nahirik, eta ez dudala oraindik lortu? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

apotegma *iz* esaldi edo esapide laburra, pentsamendu edo irakaspen bat adierazten duena.

Bigarren milurtekoari eta XXI. mendeari loturiko etorkizuna, horrenbeste aldiz zirikatu eta deitu ondoren -gogora Francis Fukuyamaren "historiaren amaiera" **apotegma** zabaldua-, bortizki etorri zen 2001eko irailaren 11n bahituriko hegazkinek New York-eko zeruan arrasto ezaba ezinak utzi zituztenean. Iñaki Heras

Agian basamortuko Gurasoen **Apotegmen** antzeko historia izan zuten, horien antza baitute forman nahiz edukian: hasieran bakoitza bere aldetik zabaldu zen, gero elkartuz joan ziren, gaur egun duten hitzaldi bateratu baten forma hartu zuten arte. Askoren artean

---

apotema *iz* poligono erregular baten erdigunetik edozein aldera trazatzen den zuta.

Eta segidan: zer da **apotema**? Iñigo Aranbarri

---

apoteosi *(orobat **apoteosis** g.er.) iz* zerbaiten edo norbaiten une gorena.

Urrezko hauts bat, argitasun gorrizko laino bat zebilen airean, Parisko **apoteosiak** izaten diren arrats atsegingarri horietako bat zen. Josu Zabaleta

Lotsagabekeriaren gailurra izan zen, gustu txarraren **apoteosia**. Xabier Montoia

1902an Adrian Loiartek Euskal-Erria aldizkarian "arraza baten bizitzearen **apoteosia**" deitzen die erromeriei ermita inguruotako jaien moraltasuna goraipatzeko izugarrizko irrika agertzen dute behin eta berriz: [...]. Berria - Kultura

Camiloren *feeling*-a eta **apoteosia** kontzertuaren atzetik etorri ziren, bi eskupekoetan: Karibeko song eta Gershwin-en Someone to wath over me abestiaren gainean egindako inprobisazio ziragarriekin. Berria - Kultura

Bizitza gelditu egin zaio; lausoki, erretiro lasai bat hasi da irrikatzen; eta horrek huts eginez gero, **apoteosia**, heriotza. Oskar Arana

Antza denez, ISSren **apoteosia** hezurren osteoporosiari buruzko ikerketa bat izan da. Berria - Gaiak

Ez da batere erraza Beethovenen 7.sinfonia dantzaraztea nahiz eta Wagnerren iritziz "dantzaren **apoteosia**" den. Berria - Kultura

Bozkarioari Himnoa **apoteosis** tragiko batean bururatu zenean, oskarbi zen: an der freude! Itxaro Borda

---

apoteosiko *izond* apoteosiaren nolakotasuna duena.

Nekez zabaldu zituen zentimetro batzuk, kirrinka **apoteosiko** batez lagunduta. Fernando Morillo

---

apoteosis ik **apoteosi**.

---

apotzar *(corpusean ez dago; ETCn **32** agerraldi) iz* apo handia; irain bezala erabilitako hitza.

Gure baitan lo dagoen **apotzarra**. ETC-literatura, saiakera

Apotzarrak, esan nahi dut -aipatu zuen, jator antzera, eta kutsurik gabe erantsi zuen:- Uste nuen dagoeneko hilda zeundela. ETC-literatura, saiakera

Zer esanik ez, berriz, apoak euskal hizkeran utzi dituen aztarren gaiztoetaz: **apotzar** deabrua! ETC-literatura, saiakera

Hi egon lasai, kokotetik helduta zeuzkaat, **apotzarrak** ez besteak! ETC-literatura, saiakera

Harrezkero ez gara beti akordatzen gure baitako **apotzarra** nola lokarrarazi, eta mutil askorekin -zoritxarrez- ez dago jolasteko modurik. ETC-prentsa

---

apotzarka *adlag* lauhazka, lauoinka.

Ene burua leize baten zolan ikusten nuen, zola hartan **apotzarka** ibilki, handik nehorat ezin xutituz. Janbattitt Dirassar

---

appassionato *iz* musikaz mintzatuz, interpreteak pasio bereziz jo beharreko lana edo zatia.

Han zeuden konposatzaileek, aurpegi margotuari azkenean malkoak jartzen dizkion umeak bailiran, partituretan banatu zituzten hitzak: 'larghetto' lasaia, 'andantino' biziagoa, '**appassionato**' kitzikaria, 'morendo' hilgarria, 'dolcissimo' ezin samurragoa, 'disperato' etsipendua, 'mezzo forte' indartsua... eta beste asko. Pako Aristi

---

apraxia *(corpusean ez dago; ETCn **61** agerraldi) iz* arrazoi organikorik ez izanagatik borondatearen arabera jarduteko ezintasunak ezaugarritzen duen gaixotasuna.

Oso garrantzitsuak diren hiru sintoma hauek: afasia, **apraxia** eta agnosia. ETC-prentsa

Apraxia idiomotorrean, pazienteak ez du zailtasunik izaten egin behar duen mugimenduaren ideia sortzeko, baina ezin du mugimendua gauzatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pentsamenduak hitzez adierazteko zailtasuna izatea (adibidez, afasia, disfasia, **apraxia**, dislexia). ETC-zientzia, zuzenbidea

Alzheimerren gaixotasuna duen pertsonak hainbat **apraxia**-maila izan ditzake. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lortutako grafikoak aztertuta frogatu da horiek guztiak konplexu psikomotorra zehatz bati dagozkion motetan sailka daitezkeela: ezegonkortasun moduak, epilepsia, **apraxia** zakarra, etab. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezkerraldeko **apraxia** ideomotorra ezker gorputz-adarrekin keinu bidez ekintzak interpretatzeko gaitasunik eza da eta funtzio hori ere ezker hemisferioan kokatzen delako gertatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Apraxia (ikasitako ekintza motor boluntarioak burutzeko ezintasuna, nahiz eta gaitasun fisikoa eta egiteko borondatea izan; hau da, agindua ulertzen da eta mugimendua burutzeko gaitasuna badago). ETC-entziklopedia

---

aprendiz 1 *iz* lanbide bat ikasten ari den pertsona.

Laborari gutxi eta merkatari asko; batez ere: pelaireak, harginak, arotzak, zurginak, basteroak, kordeleroak... eta ofizioburuak beren **aprendiz** eta morroiekin. Patziku Perurena

Hamabi urteko gaztetxoa artean, **aprendiza** gailendua zitzaion dagoeneko nagusiari asmamenez eta buru argiz. Juan Garzia

Aprendizak, Léon izenekoak, hamabost urte besterik ez zuen; mutil koskor mehe bat zen, itxura gozokoa, ahaztutako saltxitxoi zatiak eta urdaiazpiko muturrak lapurtzen zituena. Karlos Zabala

Aprendizen eskas gorria ostalaritzan. Herria

Etxe inperialaren heziketa-funtzioa "morroien" edo, egungo hitzetan esanda, **aprendizen** kidego bat sortuta bete zen. Iñaki Mendiguren

Osaba eta dendako **aprendizen** bat harritu egiten ziren goizean itsuen betaurreko ilun haiekin iristen ikusten nindutenean. Pello Lizarralde

Baionako **Aprendizen** Formakuntzako zentruak karia horretara haragi antolatze mostraka bat egin du eta ere ogitarteko berezi bat eskaini " Peio Gorria " izenekoa. Herria

Hamar urte pasa ziren **aprendiz** sartu nintzenetik eta ordu arte. Daniel Landart

Ilundu ondoren itzuli behar etxera behin baino gehiagotan, lanetik, dotrinatik, edo aldameneko Villafrankan edo Beasainen jostundegian **aprendiz** jardun eta gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Enpresari doakionez, **aprendiz** bat hartzen duenak zerga gutxiago ordaintzeko aukera ukanen du. Berria - Ekonomia

Guti edo aski ofiziokoa bilakatu bainintzen Büchenwald-en, bi **aprendiz** hartu nituen: eskuin Janssens, Aix-la-Chapelle-ko kapituluaren burua, eta ezker Mayence-ko katedraleko artxipretra. Marzel Etxehandi

Etchetok beldurrak eta dudak joanak ditu orai, aski luzaz **aprendiz** egonik hau ere. Herria

Behin batean Pernando **aprendiz** omen zegoen Ixtaber Tolosako Sudur-motza zenaren zapata-dendan, eta ez dakit zuek jakingo duzuen, baina Ixtaber hura zapatagile zahar ikaragarri aberatsa zen. Koro Navarro

Gaztetxo frango 14 urtetan sartuko direla **aprendiz**? Bainan nun, norekin eta xuxen zeri buruz? Herria

Hartzen zaituzte **aprendiz**, eta zakarrak botatzera edo haurra sehaskan kulunkatzera joateko esaten dizu maisuaren emazteak. Koro Navarro

Lau urte **aprendiz** emanik, Pontitora itzuli zen Franco 1953an, baina berehala konturatu zen herrian, gainbehera hasia baitzen, ez zegoela lekurik altzarigile batentzat. Xabier Olarra

Haien arteko hirugarrena da, aurpegi hitseko **aprendiza**, mandatuetarako morroia. Oskar Arana

Behin batean Pernando **aprendiz** omen zegoen Ixtaber Tolosako Sudur-motza zenaren zapata-dendan, eta ez dakit zuek jakingo duzuen, baina Ixtaber hura zapatagile zahar ikaragarri aberatsa zen. Koro Navarro

Pierre-Philippe, **aprendiz** gaztea, putiko beltzaran fierra, ederki formatzen ari zena. Daniel Landart

Proposamen horiek berme, kontratu berezi batzu eskainiak litazke lanik ez duten gazte askori, errextasunak balitazke **aprendiz** gazteak hartzeko lantegietan. Herria

Suediar gerra-presoak erabili ziren irakasle, eta errusiar **aprendizak** Königsberg-era bidali ziren prusiar trebakuntza lortzera. Iñaki Mendiguren

2 *izond* lanbide bat ikasten ari dena.

Touchagueseko bizargin **aprendizak** biziki maite zituen nonbait irudi horiek eta berarekin eramaten zituen bidaietan. Joxean Agirre

Postal horietako bat bere etsai nagusiari bidalia da, bere andregaiaren atzetik dabilen herriko bigarren bizargin **aprendizari**. Joxean Agirre

Bien bitartean, Cadinek eta Marjolinek Léonen ezaguera egin zuten, Quenu-Gradelletarren hestebetegile **aprendizak** jakiren bat auzoko norbaiten etxera zeraman batean. Karlos Zabala

Horren ondotik zapatari **aprendiza** pozik zebilen nirekin, eta jakin nahi izan zuen nondik zetorkidan abildade hura. Pello Lizarralde

3 (hitz elkartuetan)

Horrela, publikoak sartu bezain laster han ditu ekonomiako argitasun idatziak, enpresa idekitze/aldatze/heste urratsak, **aprendiz** kontratu eta enpresa transmisio urratsak. Herria

Hemendik aitzina, Hazparneko laborantza **aprendiz** eskolak, BLE eta Arrapitz elkartek pikoan emanen dute jauregi horretan eta inguruko lurretan laborantza biologiko etxalde bat. Herria

4 irud/hed

Orduko Harry Truman amerikano presidentaren aldean, gaurko Ben Laden **aprendiz** bat baizik ez da, nahiz mila aztapar beltzetako Al-Qaida olagarro munstroaren sortzaile bihurria izan. Herria

---

aprendizgo *(orobat **aprendizko** g.er.) iz ipar* aprendiz ikasketa; aprendizaren lanbidea.

Ikasketa luzeek dute tirria handia pizten, **aprendizgoa** "buru onik" ez dutenentzat dela uste dute maiz jende anitzek gure ingurutan ere. Herria

Baionako inprimeria xahar batean egina zuen **aprendizgoa** eta "conducteur offset" kalifikazioa erdietsi ondoan, araberako lana zeukan. Daniel Landart

Ez da **aprendizgo** luze beharrik. Marzel Etxehandi

Aprendizgoak duen itxura kanbiatu nahi dute arduradunek. Herria

David Saldubehere-k galdu final-zortzigarrenetan Dardy landestarraren kontra: **aprendizkoak** ari ditu egiten, eskua ere ez ongi izanik, partida ezin irabazi, 22-40 emaitzarekin. Herria

Hamalau urtetan sartu naiz **aprendizgoan**. Menane Oxandabaratz

Deus guti dakidala haiei buruz, bizitza kasik osoa haiei beha eman dudan arren... eta jartzen naiz haien **aprendizkoan** berriro, ea arrazoinaren edo bihotzaren begiz sekeretutxo berriren bat igartzen eta ebasten diedan, lehen eskolarat joan beharko banu bezala, ileak urdindurik ditudan arren. Joan Mari Irigoien

Oroit zaite laborantzako eskola horien **aprendizgo** denborak zirela. Herria

Bi urteko **aprendizgo** kontratuekin. Herria

---

aprendizko ik **aprendizgo**.

---

aprentsibo *izond* aprentsioa sentitzen duena.

Izan ere, gaitza diagnostikatu ez eze, sendabideren bat gomendatu ere egin beharko liguke gure mediku **aprentsiboak**. Patziku Perurena

---

aprentsio *iz* arriskutsua edo kaltegarria izen daitekeen zerbaiti edo norbaiti buruzko susmo txarra, batez ere instintuak eragina.

Aprentsioak hartu ninduen. Bernardo Atxaga

Heriotzari buruzko meditazioa-, eta horrek **aprentsioz** bete ninduen. Bernardo Atxaga

Alkoholikoa aspalditik, hezur eta azal, adin handikoek bakarrik begiratzen diote **aprentsioz**. Bernardo Atxaga

---

apreta *iz* espartina.

Bere **apreta** zuriak bizi-bizi mugitu ziren ostatuko zoruaren gainean. Bernardo Atxaga

Gertu zegoen guztia: trikitilariak soinua bizkarretik zintzilik eta panderoa eskutan ziren; dantzariak arropa tradizionalekin dotore zeuden, **apreta** txuri eta atorra beltzarekin. Berria - Kultura

-Orrek? Abarka asko eta **apreta** gutxi daukala. Iñaki Arranz

-Hasieratik hasita -esan du- hementxe daukazu uniformea: txamar lodia, galtzak, txapel gorria (bere borla eta guzti, jakina: gu ez gaituk "Txapelgorriak"!), bota pare bat ere bai, **apreta** pare bi. Txillardegi

---

apretagile *iz* espartingilea.

Bi kale horietako bizilagun gehienak nekazariak, **apretagileak** eta gurdi-arotzak dira. Koro Navarro

Herria esnatzen denean, goizaldean, idien marruak aditzen dira; gero, **apretagileek** espaloira ateratzen dute bankua, eta arotzak kalearen erdian aritzen dira lanean, umeteriaren, oiloen eta zakurren ondoan. Koro Navarro

Hiriko bi kale nagusiak korritu, eta erromantikoak iruditzen zaizkien lekuen eta **apretagile** taldeen argazkiak egiten dituzte, eta haiek burlaizez uzten diete argazkiak ateratzen. Koro Navarro

---

apreziatu, aprezia(tu), apreziatzen **1** du *ad* aintzat hartu, estimatu.

Uste dut bidaiak berak eskaini didana ere **apreziatzen** jakin dudala. Pako Aristi

Badakit **apreziatu** nauela publikoak. Berria - Kultura

Hura, mutilak, besteak ez bezalakoa zuan, artea eta guk konprenitzen ez ditugun beste gauza batzuk **apreziatzen** zitian, hark zeukan ekarria hark. Pablo Sastre

Uros naiz ikustea hemengo janaria **apreziatzen** duzuela. Ramuntxo Etxeberri

2 antzeman.

Geneuzkan objektu guztiez globoa arindurik, **apreziatzerik** ez geneukan altueraraino igo ginen. Berria - Harian

3 ekonomian, diruaren merkatu librean balioa handitu.

Dolarra **apreziatu** egin zen yenari buruz, baina, apreziazio hori ez baitzen orekatu asiar diruak debaluatuz, apreziazio errealeko joera arriskutsu batean geratu ziren diru horiek. Koro Navarro

---

apreziazio *iz* ekonomian, diruak balioa handitzea merkatu librean.

Horrez gainera, dolarraren **apreziazioak** eragin positiboa izan zuen beste ekonomien lehiakortasunean. Koro Navarro

Epe luzera, egoera horrek, berez, soberakin bat eragin beharko luke truke korronteen balantzean, eta soberakin horrek, printzipioz, eta bere aldetik, truke-tasa errealaren **apreziazioa** eragin beharko luke, halako eran non soldaten arteko aldeak ere txikitu egingo balirateke. Koro Navarro

Apreziazioa ez zen hain handia izan yenari buruz (%25 "besterik ez" bost urtetan), baina %50era iritsi zen hala ere, termino errealetan, Estatu Batuetako merkataritza-kide nagusien diruei buruz. Koro Navarro

Alabaina, **apreziazio** horri berorri esker asko murritz zitekeen inportazioen prezioa; horrek inflazioa jaitsarazten zuen, eta Europatik eta Japoniatik inportaturiko hornidurak prezio onean erosteko aukera ematen zitzaien enpresei. Koro Navarro

EBZko arduradunek euroaren **apreziazioaz** kezka agertzea da beste bat, gure monetaren ahultzeak Euroguneaz kanpoko inbertsiogileak kezkatu baina gure dolarizatutako enpresei mesede egiten baitie. Berria - Ekonomia

Diru ahulenen erorikoak (bath thailandiarra, errupia indonesiarra, ringgit malaysiarra...), izan ere, eskualdeko beste diruen **apreziazio** erreala esan nahi zuen (Hego Koreako won-arena adibidez), eta era horretan eraso espekulatiboen gero eta mendekoago geratzen ziren. Koro Navarro

Bilakaera hori sustatu zuten halaber inportazioen liberalizaziozko neurriek eta truke-tasen **apreziazio** errealeko politikak. Koro Navarro

Epe laburreko gainbalioen itxaropenek baino ez zioten eusten dolarraren **apreziazio** jarraituari. Koro Navarro

---

april ik **apiril**.

---

aprioriko *izond* a priori funtsatzen dena.

Aprioriko arrazoinamendua: ez du esperientzia kontuan hartzen, a priori eginikoa da. Askoren artean

Aprioriko ezagutzaren edo metafisika razionalistaren posibilitatea, ideien sortzetiko izaeren mende dago. Askoren artean

Nolako indarra dauka razionalistak aipatzen duen **aprioriko** ezagutzak (intuizioak)? Askoren artean

Ezagutza ororen oinarria bi proposizio-motek osatzen dute: **aprioriko** proposizioak, alde batetik, eta zuzeneko esperientziari buruzko proposizioak, bestetik -"existitzen naiz eta gogo-egoera zehatz batzuk ditut", esate baterako-. Askoren artean

Aprioriko justifikazioa ez balego, esperientziatik harago doazen proposizioak ezin izango lirateke justifikatu, eta ondorio horrek uste justifikatua eta ezagutza esperientziaz justifikatzen den horretara murriztuko lituzke. Askoren artean

Bi dira **aprioriko** justifikazioa aztertu duten filosofia nagusiak: neurrizko enpirismoa eta razionalismoa. Askoren artean

Esperientziak bere rola betetzen du, baina modu eratorrian, azken beltzean ezagutzaren oinarria osatzen duten **aprioriko** baieztapenak maneiatzen baititugu. Askoren artean

Horiek horrela, **aprioriko** intuizioa oinarri autonomoa eta ordezkaezina da ezagutzarentzat, eta hain zuzen ere, horregatik ezin dugu beste zerbaitera murriztu, batik bat hori diskurtsiboa (teorikoa) baldin bada. Askoren artean

Aukerarik ba al dago **aprioriko** intuizio desberdinak elkarren kontra joateko, bateraezinak izateko? Askoren artean

Gogoegoeren edukien ezagutza zuzena existitzen dela eta justifikazioaren oinarria izan daitekeela, alde batetik, eta gogamena **aprioriko** egia autonabariak antzemateko gauza dela, beste alde batetik. Askoren artean

Ikertu baino gehiago asmatu egin den aiurri edo izpiritu nazional hori, batetik, eraikuntza **aprioriko**, metafisikoa da, erreferenzia historikoak hura beztitzeko trapuak bakarrik direla; metafisiko bezala, izpiritu horrek prehistoriatik hona bere horretan dirau, beti berdin, aldaezin. Joxe Azurmendi

Horrek **apriorikoa** izan beharra dauka, hori izanen baita (1) metafisikoki ezagutza ororen oinarri absolutua, eta (2) metodologikoki axioma unibertsal gisa baliozkoa, handik zuzen deduzitzeko gainerako jakite guztien printzipioak, ez dedukzio silogistikoan. Askoren artean

Judizioan parte duten oinarrizko elementuak honako hauek dira: (1) sentsazioak eta kontzeptuak, (2) kontzeptu enpirikoak eta kontzeptu hutsak (edo **apriorikoak**), eta, azkenik, (3) Ideiak. Askoren artean

Badaude egia **apriorikoak** aldi berean ez-beharrezkoak direnak, eta badaude egia ez-**apriorikoak** aldi berean beharrezkoak direnak. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aprioriko ezagutza (4); **aprioriko justifikazioa** (7)

---

apriorikotasun *iz* apriorikoa denaren nolakotasuna.

Beharrezkotasunaren kontzeptua ez da nahastu behar **apriorikotasunaren** kontzeptuarekin, sarritan gertatu izan den bezala. Askoren artean

Beharrezkotasuna eta **apriorikotasuna** esparru desberdinetako kategoriak dira, eta ez dute zertan bat egin: badaude egia apriorikoak aldi berean ez-beharrezkoak direnak, eta badaude egia ez-apriorikoak aldi berean beharrezkoak direnak. Askoren artean

Hortaz, okerra litzateke identifikatzea **apriorikotasuna** eta beharrezkotasuna. Askoren artean

---

apriorismo *iz* aprioriko ideietan funtsaturiko jarrera.

Pragmatismoak, eraginkortasunean oinarrituriko jarrera horrek, aurrean jartzen zaizkion aukera eta gertakizun guztiak baliatzen ditu -on du on dezakeen oro-, eta errezeloz begiratzen dio **apriorismoaren**, dogmaren edo ideologiaren kezka-usain desatsegin hori duela iruditzen zaion guztiari. Anjel Lertxundi

Balioen ardura, ordea, ez da izan filosofiko hutsa, zorionez, eta gutxiago balioen **apriorismoarena** edo zentzu razionalarena bakarrik. Joxe Azurmendi

Hori da, laburbilduta, maitasunik gabeko zientziaren sailean azaltzen den fundamentalismo zientifikoa, objektibotasun zientifikoaren postulatua, **apriorismo** huts nabaria, kosmosa eta bere fenomeno guztiak bi multzotan banatzen dituena. Jenaro Garate

Hala, "beraiek ez ezik beste guztiek gaizki egin dugun **apriorismotik** abiatzea eta bakarrik euren jarrera koherentetzat ikustea" arbuiatu zuen Erraztik. Berria - Euskal Herria

---

apriorista *izond* apriorismoaren aldekoa.

Eta hona hemen Kant **aprioristak** berehala gehitutakoa: "Hala ere, gure ezagutza guztia esperientziarekin hasten bada ere, ez da dena esperientziatik sortzen" (ibid.). Askoren artean

---

aprioristiko *izond* apriorismoarena, apriorismoari dagokiona.

Halatan, euskal hitzen interpretazioa egiten hasten denean, Oteizak ezin du euskaldunok dugun hiztunen arteko itunetik abiatu, ezin dio asmakeria garbizalearen neologismo-eitea nabarmendu txadona hitzari, neskatxa betikoak tokia egin behar dio bere neskautsa **aprioristikoari**. Anjel Lertxundi

Kantek jakindakotzat ematen du gizakia ezagule dela, esanez arlo batzuetan ezagutza **aprioristiko** zehatz ukaezinak lortu dituela. Jenaro Garate

---

apriorizko *izlag* aprioristikoa.

Izan ere, a priori finkatuta egon behar duen edozein ezagutzak iragartzen du behar-beharrezkotzat hartua izan dadila nahi duela eta **apriorizko** ezagutza huts ororen determinazioa. Ibon Uribarri

Sentimenaren **apriorizko** printzipio ororen zientziari Estetika transzendentala deitzen diot. Ibon Uribarri

Adigaiak esperientziaren ahalgarritasunaren **apriorizko** baldintza gisa ezagutu behar direla. Ibon Uribarri

Hemen datza, ordea, gure **apriorizko** arrazoimen-ezagutzaren lehen balioztapen hark zuen emaitzaren egiaren aurkako etsaminaren esperimentua. Ibon Uribarri

Batasun sintetiko honek, ordea, sintesi bat aurresuposatzen du, edo jasotzen du, eta batasun hark a priori beharrezkoa izan behar badu, orduan honek ere **apriorizko** sintesia izan behar du. Ibon Uribarri

Espazioa kanpoko begiespen ororen oinarrian datzan **apriorizko** eta beharrezko errepresentazioa da. Ibon Uribarri

Geometriaren esakuneak **apriorizko** esakune sintetikoak direnez eta ziurtasun apodiktikoaz ezagutuak direnez gero, orduan zera galdetzen dut: nondik lortzen dituzue halako esakuneak, eta zertan eusten da gure adimena halako egia behar-beharrezkora eta orokorki baliodunera iristeko? Ibon Uribarri

Aurkitzen bada, beraz, lehenik, aldi berean bere beharrezkotasunarekin batera pentsatzen den esakune bat, orduan hau **apriorizko** judizioa da. Ibon Uribarri

Gure ezagutzak dituen **apriorizko** oinarri-esakune hutsen errealitatea frogatzeko halako adibideen beharrik gabe ere erakuts dezakegu esakune hauek esperientzia beraren ahalgarritasunerako ezinbestekoak direla, eta beraz, a priori aurkez ditzakegu. Ibon Uribarri

Halako ezagutzei **apriorizkoak** deitzen zaie eta ezagutza enpirikoetatik ezberdintzen dira, beren iturburuak a posteriori, hots, esperientzian dituzten ezagutzetatik. Ibon Uribarri

Ezagutza enpirikoaren eta **apriorizkoaren** arteko benetako bereizketa osatzen duen zerbait. Ibon Uribarri

Hain sintetikoa den esakune honetaz, ordea, inon ez dut froga baten saialdirik ere aurkitzen, are gehiago, noizean behin soilik agertzen da izadiaren lege huts eta erabat **apriorizkoen** buruan, dagokion moduan. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **apriorizko adigai** (20); **apriorizko adigaiak** (6); **apriorizko adigaien** (3); **apriorizko adigaietatik abiatuta** (3); **apriorizko baldintza gisa** (4); **apriorizko baldintzak** (4); **apriorizko batasun** (3); **apriorizko begiespen** (5); **apriorizko begiespena** (6); **apriorizko begiespenaren** (3); **apriorizko esakune sintetiko** (3); **apriorizko esakune sintetikoak** (5); **apriorizko esakune sintetikoen** (3); **apriorizko ezagutza huts** (5); **apriorizko ezagutza hutsaren** (4); **apriorizko ezagutza sintetikoaren** (3); **apriorizko ezagutzak** (7); **apriorizko ezagutzaren ahalgarritasuna** (3); **apriorizko judizio sintetikoak** (5); **apriorizko judizio sintetikoen** (3); **apriorizko oinarri esakune** (6); **apriorizko printzipio** (3); **baina apriorizko** (3); **baten apriorizko** (4); **bere apriorizko** (7); **da apriorizko** (3); **den apriorizko** (3); **diren apriorizko** (3); **duen apriorizko** (3); **duten apriorizko** (4); **esakunea apriorizko** (3); **esperientziaren ahalgarritasunaren apriorizko** (4); **ezein apriorizko** (4); **gure apriorizko** (6); **hau apriorizko** (5); **hauek apriorizko** (4); **objektuen apriorizko ezagutza** (3); **ororen apriorizko baldintza** (3)

---

aproba ik **proba**.

---

aprobatu, aproba(tu), aprobatzen **1** du *ad* azterketez eta kidekoez mintzatuz, gainditu.

Afaldu ondoren erlaxatu egin dira; azterketa bat **aprobatu** balute bezala. Pako Aristi

1970eko ekainaren bukaera zen, eta hiru hilabeteko oporren atarian nengoen ESTEko laugarren kurtsoa **aprobatu** ondoren; baina Villa Lecuonan pasatako minutuak eta orduak astunak egiten zitzaizkidan. Bernardo Atxaga

Hasieran autobusez, eta, lehenengo urtean dena **aprobatu** zuenez geroztik, aitak oparitu zion R-5 horian. Xabier Mendiguren Elizegi

Justu-justu **aprobatu** zuen; sei bat jarri zioten, 'Ongi' besterik ez. Pako Aristi

Poz handia zeukan gure emaitzekin -Victoriak ere **aprobatu** egin zuen Kimika- eta ez zuen hura zapuzterik nahi. Bernardo Atxaga

Gero, gure amak berarekin topo egin zuen batean, zera esan omen zion Altunak: jakin izan balu ama halako euskaldun jator nuela **aprobatu** izango ninduela noski. Joxerra Garzia

Gauza bat zeukan ona, egia baldin bada behintzat: denak **aprobatzen** dituela! Pako Aristi

Ulertu edo ez ulertu, jakin edo ez jakin, ikasitakoak **aprobatzeko** ez beste ezertarako balio duen, hori da gutxienekoa. Joxerra Garzia

Ikasle guztiak **aprobatuko** ditut pelotak izan ezik. Jon Arretxe

Eta, notarekin kezkarik izan ez dezazuen, aldez aurretik esaten dizuet guztiok **aprobatuko** zaituztedala, baldin eta gutxieneko ahalegin bat egiten baduzue. Joan Mari Irigoien

2 (era burutua izenondo gisa)

Aprobatu orokorrak ematen dituzte. Bernardo Atxaga

Horrez gainera, ikasteari ekin zion, eta haren batez besteko nota **aprobatu** juxtutik oso bikainera igo zen. Juan Garzia

---

aprobatxo *iz adkor* aproba.

Egin izan ditugu **aprobatxoak**, baina gure jardueraren ehuneko larogeita hemeretzi *a capela* izan ohi da. Andoni Egaña

Baina, egizu **aprobatxo** bat, eta zer jartzen dugu trabes?: Baietz izen hauekin askoz hobeki koadratu, aldian aldiko eguraldiak! Zenbat doa...? Pello Zabala

---

aprobazio *(orobat **aprobazione**) iz* onarpena, oniritzia.

Ez genuen Deere jaunaren **aprobaziorik** behar izan. Karlos Linazasoro

Behar nuen haren boza, harraren mututzeko eta isilarazteko; eta behar nuen, finean, haren **aprobazionea**, eta, beraz, haren iritzia ene aldekoa izaitea, edo, aldekoa ez bazen ere, nik neure alde ipintzea eta makurraraztea, nola pisuak balantza. Joan Mari Irigoien

---

aprobetxagarri *izond* aprobetxa daitekeena.

Garitano ere jokalari **aprobetxagarria** izan daiteke gaur taldea sendotze aldera, baldin eta azken boladan eman duen maila hobetzen badu. Berria - Kirola

Altxatu egin zen haren agintearen aurka, hark bere handitasunean iraganean bidegabe jokatu izana salatzeko, pentsatuz ere bai Enperadore Horiaren ahulezia agerikoa zela behin egindakoa zuzentzen eta txukuntzen saiatzen bazen: zirrikitu **aprobetxagarria** beraz. Felipe Juaristi

Gainera, kontuan hartzen badugu zepa **aprobetxagarria** dela, 100 metro kubikotik soilik zabortegira metro kubiko bat errauts eramango litzateke. Berria - Euskal Herria

Orduan esan zigun zerria zela animaliarik **aprobetxagarriena**, zerritik dena aprobetxatzen zela, eta zerriak bezala izaten ikasi behar genuela gizakumeok, gutxi eskatu eta besteen alde dena ematen. Karlos Linazasoro

Gizartearen gehiengoa, banan bana hartuz gero, zeharo **aprobetxagarria** da. Berria - Euskal Herria

---

aprobetxamendu *iz* aprobetxatzea, onura ateratzea.

Irudiak aztertu dituzten Primitiva Bueno eta Ricardo Balbin Alcala de Henareseko Unibertsitateko katedratikoen ustetan, horrelako monolitoek erakusten dute historiaurreko gizarte antolamenduak uste baino garrantzitsuagoak zirela Euskal Herrian, orduko biztanleak gai zirelako eraikin komunak altxatzeko, hain zuzen ere gero bere **aprobetxamendua** ziurtatzeko. Berria - Kultura

Gizartean txertatu behar dela teknologia, eta teknologiak, **aprobetxamendu** efizientea izango badu, gizarte-aldaketak beharrezkoak dituela. Iñaki Heras

Berrikuntza teknologikoek sortuko duten gauzak egiteko modu edo paradigma berria garatzen doan heinean -eta paradigma berri horrek dakartzan abantailak gero eta nabarmenagoak bilakatzen diren neurrian-, aterako zaio benetako **aprobetxamendua** teknologia aurrerakuntzari. Iñaki Heras

Giharrek sortzen duten energia mekanikoaren **aprobetxamendua**, % 24-28koa. Berria - Kirola

Energiaren **aprobetxamendu** hobea lortzeko teknologiak. Berria - Gaiak

Onuragarriak: elikagaien **aprobetxamendu** hobea, nutrizio alorrean hobekuntzak, higiene neurri zorrotzagoak, bitamina-iturri berriak ezagutzea, jangaiak prezio hobean eskuratzea. Edorta Agirre

Esan daiteke horrenbeste jende etortzeak, unibertsitatea horiek guztiak "irensteko" prestatua ez zegoelarik, aski kalte handiak ekarri dituela **aprobetxamenduan**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

aprobetxategi *izond/iz adkor* egoerez eta, aprobetxaten dena.

Eta ezetz, hirugarren adinekoak ez zirela **aprobetxategi** batzuk, hura ere gaizki esan nuela, eta barkatzeko, ongitxo mereziak zituzten-eta bidaiatxo haiek, bizitza osoan lan egin ondoren eta segurtasun sozialari urte luzeetan zergak ordaindu ondoren. Joan Mari Irigoien

Hori dun **aprobetxategia**, hori! Patxi Zubizarreta

Diruak badu dirudunaren ingurutik igarotzen diren putre eta **aprobetxategi** guztiak erakartzeko ahalmen berezia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Apezkondo, mezulari, misiolari, egolari, negarti eta **aprobetxategiz** inguratuta delakoan, zeharo mesfidati da elkargo, kofradia eta enparauez, literatura erlijio bilakatu dutenez. Jose Angel Irigaray

Neskak, gorteialaria era oneko ezkongaitzat zeukan bitartean, ez zuen uxatzen; baina enplegatu apal bat, kazetari ezezagun, **aprobetxategi** bat baizik ez zela jakitean, ez zion gehiago aurpegira begiratzen ere. Josu Zabaleta

Ordea, ez ortodoxia **aprobetxategian** bukatzeko, baina heterodoxia gorri-gorri totalean eta madarikazioan jarraitzeko, ezein ofizialtasuni arrimatu gabe, bere buruaren inmolazio intelektual eta material erabatekoraino. Joxe Azurmendi

Ordutegi etengabea ahal dela, zerbitzariek jeneroa ikusi bai baina ez dakite zer den, zertako den, zenbat kostatzen den, bestelakoa non dagoen etab.; prezioetan denetik (eskaintza modu-modukoak, **aprobetxategien** diseinuzko diru-zurrupatzeak eta iruzurrak), apaingarriek eta produktuen kokapenak garrantzi handia dute. Edorta Agirre

Ez dadin beste ar **aprobetxategiren** bat etorri arrautzak errun aurretik eta bere esperma ipini gauzak nahastu behar ez diren tokian. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sorbaldetatik heldu zidan, traizioan, lurrera bota ninduen turkiar armairu puska lotsagabe **aprobetxategi** hark, esaten dizuedan bezalaxe izan zen. Fernando Rey

---

aprobetxatu, aprobetxa(tu), aprobetxatzen **1** du *ad* zerbaiten erabilera ona egin; zerbaiti etekina atera.

Isilik dago entzuleria, ikaraturik, eta Molinero poetak, abagunea **aprobetxatuz**, beste haiku bat irakurri du: [...]. Karlos Linazasoro

Alberto erakusketa prestatzen jarraitzeko agertu zen arratsaldea **aprobetxatu** zuen Justo Badiolak gutun haiei buruzko susmoa argitzen saiatzeko. Joxemari Urteaga

Portalean barrura sartzen ari zirela **aprobetxatu** zuen gaia ateratzeko. Joxemari Urteaga

Lehenengo ohar bibliografiko hau **aprobetxatu** nahi dut elezaharren bidean bi iturri hauetatik sarri edan dudala aitortzeko. Martin Anso

Portalean barrura sartzen ari zirela **aprobetxatu** zuen gaia ateratzeko. Joxemari Urteaga

Eguzki une bat **aprobetxatuko** zuen argazkiak ateratzeko. Joxemari Urteaga

Horixe da harria lapurtzeko **aprobetxatu** behar duzun unea. Martin Anso

Edo zertarako agian azkenik **aprobetxatua** gerta litekeen aukera pasatzen utzi? Pako Aristi

Pixkana, bien arteko harremana sortuko da, harreman horren kontrasteak gehiegi **aprobetxatuak** ez badaude ere. Berria - Kultura

-Gu bagoaz -esan zion Eligiok haren umore ona **aprobetxatuaz**-. Josu Zabaleta

Nire urtebetzea dela **aprobetxaturik**, gutun bat idatzi nion Zuzendari txit agurgarriari nire lagun minenei afari-merienda bat eskaintzeko baimena eskatuz. Anjel Lertxundi

Portuko itsasontziei begira oso gustura afaldu genuen, beti ere edozein aukera **aprobetxatuz** Marirekin ostera olgetan hasteko. Joxemari Iturralde

Mairuak beren buruzagia Naxerara eramaten saiatu dira, baina Karlomagnok, ustekabea **aprobetxatuz**, eraso egin du bere soldaduekin, eta Naxeraz jabetu da. Martin Anso

Iluntasuna **aprobetxatzea** hobe izango zela, eta Talaimendiko muturrean igo ziren arrantzontzi txiki batera ostatuko bikote zaharra, Roman bera, ontziko patroia eta beste sei bat zibil. Inazio Mujika Iraola

Plangintza horretan proposatzen zen, besteak beste, Zorrotzaurreko bazterrak **aprobetxatzea** hiriko campus berri bat egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Estatu unibertsal batek eragindako giro psikologikoaz, beren harrapatze-helburuetarako **aprobetxatzea** lortu duten erasotzaile barbaro edo atzerritarrek eskuraturiko onurak nabariak dira eta, ikuspegi laburraz, ikaragarriak. Iñaki Mendiguren

Aldiz, ilbeherakoan, garbiketa lanean nola dabilen, botatze ahaleginetan, ez da horrenbeste arduratzen **aprobetxatzeaz**. Pello Zabala

Gerra zibil helenikoa kartagoar eta akemenestarrentzat tentazio saihestezina zen beraien aurkari helenikoen mania suizida ematen zuen hartaz **aprobetxatzeko**. Iñaki Mendiguren

Horrez gain, berandu samar abiatu naiz, zeruko eguzki makalak ematen zuen epeltasun apurra hobeto **aprobetxatzearren**. Jon Arretxe

Merkatari guztiz argi honek, bere bizitzako denbora guztia merezimenduak lortzeko mila modutara **aprobetxatzearren**, obedientziaren gidaritzapean eta besteen gobernura makurtua bizi nahi izan zuen. Askoren artean

Bilobarekin **aprobetxatzen** dute seme-alabekin ezin egin izan zuten guztia egiteko: mimatu, jolastu, nahi duena erosi, nahi duena egiten utzi. Arantxa Iturbe

Bitaminak eta mineral pilulak eta, gehiago **aprobetxatzen** ditu gorputzak ilgorakoan. Pello Zabala

Mutilzahar, tripontzi, tolosar peto alai eta alferra, arratsaldero soziedadera joan zalea, ariketa bat jartzen zigun bakoitzean lo-kuluxka egiteko **aprobetxatzen** zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Handik itsasbazter batzuk saihesten ziren, eta zenbait haize **aprobetxatzen**. Iñaki Iñurrieta

Bizimodu harekin, ez nuen ikusten Adela, eta ez nintzen lagunekin irteten, asteburuak jo eta ke ikasteko **aprobetxatzen** bainituen, tartean-tartean mendira irteeraren bat edo beste soilik eginda. Juan Kruz Igerabide

Fluoreszente erraldoi zut bat, bururatzen zaio at-batean, argi naturala **aprobetxatzeko**. Iñaki Iñurrieta

Aukera onegia zen, ez **aprobetxatzeko**. Iñaki Mendiguren

Costak ez dit beste lanik eman, berdin da, ez du axolarik, atseden hartzeko **aprobetxatuko** dut. Jon Alonso

Ongi **aprobetxatu** duzu denbora. Jon Alonso

2 da *ad*

Ni zutaz **aprobetxatzen** naiz, zu nitaz, gaur gaurkoak eta bihar biharkoak. Joan Mari Irigoien

Beste batzuk nekatu egin ziren eta zuek haien nekeaz **aprobetxatzen** zarete. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aprobetxatu ahal izango (3); **aprobetxatu behar dira** (5); **aprobetxatu behar direla** (3); **aprobetxatu behar dugu** (3); **aprobetxatu beharra dago** (5); **aprobetxatu du** (12); **aprobetxatu dut** (7); **aprobetxatu dute** (4); **aprobetxatu duzu** (3); **aprobetxatu egin behar** (16); **aprobetxatu egin zuen** (5); **aprobetxatu egingo** (5); **aprobetxatu egiten du** (3); **aprobetxatu nahi dut** (3); **aprobetxatu nahi izan** (6); **aprobetxatu nahian** (3); **aprobetxatu nuen** (14); **aprobetxatu zuen bere** (3); **aprobetxatu zuen justok** (3); **aprobetxatu zuten** (11); **aukera aprobetxatu zuen** (4); **aukera guztiak aprobetxatu** (5); **aukera hori aprobetxatu** (3); **aukerak aprobetxatu behar** (4); **ederki aprobetxatu zuen** (6); **egiteko aprobetxatu** (6); **egoera aprobetxatu** (4); **emateko aprobetxatu** (5); **ere aprobetxatu** (4); **ez zuen aprobetxatu** (5); **guztiak aprobetxatu behar** (6); **hau aprobetxatu nahi** (3); **hori aprobetxatu behar** (3); **hori aprobetxatu egin** (3); **hori aprobetxatu nahi** (4); **hori aprobetxatu zuen** (3); **horiek aprobetxatu** (3); **hura aprobetxatu zuen** (4); **ondo aprobetxatu beharko** (3); **ondo aprobetxatu zuen** (3); **ongi aprobetxatu** (5); **une hori aprobetxatu** (3); **une hura aprobetxatu** (3)

aprobetxa ezazu (5)

aprobetxatuko dut (8); **aprobetxatuko dute** (3); **aprobetxatuko zuen** (4); **aukera aprobetxatuko** (3); **egiteko aprobetxatuko** (4)

abagunea aprobetxatuz (3); **ari zirela aprobetxatuz** (3); **dela aprobetxatuz** (3); **geundela aprobetxatuz** (3); **hori aprobetxatuz** (7); **hura aprobetxatuz** (7); **zegoela aprobetxatuz** (9); **zela aprobetxatuz** (6); **zuela aprobetxatuz** (5)

aprobetxatzeko asmoz (3); **aukera aprobetxatzeko** (4); **aukerak aprobetxatzeko** (4); **hau aprobetxatzeko** (3); **hobeto aprobetxatzeko** (3)

aprobetxatzen ari (7); **aprobetxatzen dira** (3); **aprobetxatzen ditu** (5); **aprobetxatzen dituzte** (4); **aprobetxatzen du** (7); **aprobetxatzen dute** (4); **aprobetxatzen ez** (3); **aprobetxatzen jakin** (7); **aprobetxatzen saiatu behar** (3); **aprobetxatzen saiatuko** (5); **aprobetxatzen zuen** (5); **aprobetxatzen zuten** (6); **aukera guztiak aprobetxatzen** (3); **aukerak aprobetxatzen** (3); **dena aprobetxatzen** (5); **egiteko aprobetxatzen** (4); **hobeto aprobetxatzen** (3); **hori aprobetxatzen** (5); **ondo aprobetxatzen** (5)

---

aprobetxatze *iz* zerbaiten erabilera ona egitea; zerbaiti etekina ateratzea.

Burlatiren batek esango zukeen lastoa **aprobetxatze** hori ez zela harritzekoa espainiarren artean. Josu Zabaleta

---

apropiazio *iz* jabe egitea.

Film hori ez dute inondik inora **apropiazio** moduan erabili, "hortik abiatu eta lan berri bat sortu dugu, eta zuzenean 60ko hamarkadako artistekin lanean ari gara". Berria - Kultura

---

apropos[1] *adlag* berariaz, nahita.

Apropos bota nuen, kontura zintezen. Joxemari Urteaga

Sua bi puntutan hasi zenez, norbaitek **apropos** piztu zituela uste zutela esan zuten suhiltzaileek. Berria - Mundua

Txirrista gehienak amak ez iristeko **apropos** eginak dira. Arantxa Iturbe

Baso galtzearen hainbat arrazoi ematen ditu txostenak: baso mozketa, suteak (nahigabe nahiz **apropos** piztutakoak), eta nekazaritza lurren zabaltzea. Berria - Gaiak

Matiasek **apropos** markatzen zituen orrialde horiek, neurririk gabe gustatzen zitzaiolako horretaz idaztea. Unai Elorriaga

Gero, ez zekinat nola, ez zunan **apropos** izan behintzat, kasino parean bukatu geninan, nahi gabe, eta ni susmo txarrekin hasi nindunan berriz ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Lekua ere **apropos** aukeratu zuten: Kale Nagusian, "burugabeko kontsumoaren gunean". Berria - Euskal Herria

Eskuak **apropos** uzten zituzten garbitu gabe, langileenak bezalakoak izan zitezen. Hasier Etxeberria

Lehentxeago, ederrak entzunarazi dizkiot astakirten moduko bati, **apropos** ari baitzen ni zapaltzen, jendea jaitsieran edo igoeran pasatzen zen bakoitzean. Xabier Olarra

Eta zertara joan zara Harriandiraino, jakin badaiteke, itsasoa begiratzera ala **apropos** erortzera? Joseba Sarrionandia

Ile leuna zuen, burdinazko hari beltz koskatuez motots estu batean korapilaturik, ezinago **apropos** buruko txanotxo garaiari eusteko, gozotegietako charlotte russe esne-gainezko bat bailitzan. Mirentxu Larrañaga

Politikoa, bankeroa, abokatua, medikua, antzeslerik handienak dituzu, horretarako **apropos** eta doktore prestatuak. Patziku Perurena

Tentu oneko artistak, jakin behar du hori derrigor; baina, badirudi, gusto finekoa eta sentiera zorrotzekoa balitz bezala tratatzea komeni zaiola publikoa, **apropos** bere neurrira egindako obra magnifikoak eskainiz. Patziku Perurena

Arin irten eta danbatekoa eman zion ateari, **apropos**, ondo entzuteko moduan. Joxemari Urteaga

Begiak lurrerantz zituen **apropos**, aurre-aurrera iristean orduantxe bakarrik goratzeko. Iñaki Zabaleta

Horregatik, ipuinetan, ni pertsona singularra nagusitzen bada ere, **apropos**, intentsitatea emateagatik, hori ez da derrigorrez monologo bat. Ana Urkiza

Areago oraindik, irain gehiago jasotzeko, hiriko plazan jartzen zen **apropos**. Askoren artean

Sophie-ren bisita **apropos** heldu zaio. Eneko Bidegain

"Hemengo eta atzerriko prentsaren zalaparta **apropos** sorturikoa da, eta kontsumitzaileek Errusiako produktuetan konfiantza galtzea du helburu", esan du Sergei Lisovski enpresaburuak. Berria - Harian

Bere irakurketa interesatua eta **apropos** okerra da eta, tradizioaren ber elaborazio zein ukazio gisa, bere kreazioa ezin da errebisio besterik izan. Anjel Lertxundi

Lehen momentu batean, berarentzat **apropos** sortutako Ekonomia katedra bat hartu zuen. Juan Martin Elexpuru

Inkisizioa Erregimen Zaharreko gauza dela pentsatzen da, baina merkatuak eta komunikabideek, **apropos** edo oharkabean, hainbat bazterketa modu dituzte. Berria -

Kultura

apropos[2] 1 *izond* egokia, aukerakoa.

Eta bestea -"arazorik larriena niretzat" esan zuen-, ez zutela gorpuzkiak erretzeko labe **aproposik** . Ramon Saizarbitoria

Ivy etorri zitzaidan gogora, ezinbestean; Ivy-k "huntza" esan nahi baitu, izen **aproposa** , alajaina, emakume guztientzat, nire ustez. Joxe Austin Arrieta

Ez nintzen, ordea, hitz **apropos** bat ahoskatzeko gai, eta Victoriak ere ez zuen deus esaten. Ramon Saizarbitoria

Hitz **aproposen** baten eske abiatu nintzen. Aingeru Epaltza

Legenda tresna **aproposa** da kristau santutasunaz gogoeta egiteko. Askoren artean

Ohean mugitu nintzen, zangoak azpian ez hartzeko arduraz erantzun **apropos** baten bila. Ramon Saizarbitoria

Mendi aldera joan, eta toki **apropos** samar bat hartu, eta han irauten dute 24 egunez. Pello Zabala

Tuberkulosia harrapatzeko leku **aproposa** iruditzen zait. Harkaitz Cano

Gero, beren jabetzako monasterio asko, ehizarako eta defentsarako leku **aproposetan** eraiki zituzten. Patziku Perurena

Askotan eraman ohi zuen leku bakarti eta hizketarako **aproposetara** , eta altxor baliotsu eta handia aurkitu zuela aitortzen zion han. Askoren artean

Giza arrazoimenaren zoriaren berberatasun honek ez du bietako inor sustatzen ezagutza espekulatiboetan, eta hau inoiz bukatu ezin den tirabiraren borroka-leku **aproposa** da. Ibon Uribarri

Orain gutxi eskuratutako Balerdiren obraren laginarekin, artista gipuzkoarraren lanaren nondik norakoak ezagutzeko gune **apropos** bihurtu da Bilboko Arte Eder museoa. Berria - Kultura

Jarraitu nion isiltxorik eta hantxe basoko zirkilu batean ikusi nuen etzaleku **apropos** bat eginda zuela. Anjel Lertxundi

Autobusa hutsik zihoan ia, bera eta beste bidazti bat besterik ez, eta Lucyk pentsatu zuen orduan, parke zoragarri hura zeharkatzen ari ziren bitartean, musika doinu **apropos** bat besterik ez zitzaiola falta ikuskizun lasaigarri eta beste aro bateko hari. Joxemari Iturralde

Aproposa esaldia, letra beltz handitan gure auzapez guziei paparretik zintzilik paratzeko. Patziku Perurena

Horixe izango da trumoi-hodei kozkordun horien ordu **aproposa** ! Pello Zabala

"La Tour d'Argent"-era joateko bezala apaintzen zen, kandelak piztu eta musika **aproposa** jartzen zuen. Ramon Saizarbitoria

Belar horien hautsa zen gorde behar zena, etxeko haurtxoen azaleko gaitz eta pikorrak sendatzeko **aproposa** omen zelako. euskal doinu ezagun baten berri eman zigun, jotzen erraza, dantzatzeko **aproposa** , eta entzuteko ederra. Pello Zabala

Segadak egiteko **apropos-aproposa** da. Berria - Kirola

Oso gai **aproposa** litzateke hau euskaldunberri helduen lana aztertzeko eta ikertzeko. Lourdes Oñederra

Uztailaren bia, igandea, orain arteko balantzea egiteko une **aproposa** da. Edorta Jimenez

Elurra, haustura den aldetik, une **aproposa** da aldaketarako. Bernardo Atxaga

Bertsolaria bat-batean ari bada ere, bere burua aurrez prestatu ohi du, almazena betetzen du, une **aproposik** suertatuz gero, bere horretan edo egokitzapenen bat egin ondotik, aktibatzeko. Berria - Kultura

-Amaiera **aproposa** -esan zuen A-k. Bernardo Atxaga

Ate automatikoan zehar irteten diren guztiak ikusi ahal izateko distantzia **aproposean** zutabe baten ondoan gelditu denean, igarotako urteen zamak lasaitu egin du berehalakoan. Lourdes Oñederra

Une egokian toki **aproposean** . Berria - Kultura

Ez zitzaidan telebista piztea **aproposegia** iruditu, eta, azkenean, bainugelara abiatu nintzen neu ere. Ramon Saizarbitoria

Cunningham jauna zen **aproposena** horretarako. Irene Aldasoro

Santakrutzek berak ere, jakin genuenez, berehala ulertu bide zuen ez zela 1873ko abendu hura mementorik **aproposena** halako matxinada zakar bat burutzeko. Txillardegi

Giroan hasi baino lehen, ezinbesteko pausalekua garagardo batzuk edateko, geroko martxarako gramo erdi bat harrapatzeko tokirik **aproposena** . Sonia Gonzalez

Ez zen armarik **aproposena** izango, baina bai zerbait. Fernando Morillo

Izan ere, une hura, Brompton road-en zehar jende artean oinez gindoazela, ez baitzen zerbait behar bezala kontatzeko **aproposena** . Ramon Saizarbitoria

Estazioak, aireportuak, labanderiak, hotelak, hipodromoak, kasinoak eta zita-etxeak ziren bere ehizarako lekurik **aproposen** eta ohikoenak, baina beti zegoen adi. Harkaitz Cano

Errepide zabalak, etorbideak eta paseoak jolastoki bihurtuko ziren, futbol zelai edo saskibaloirako leku ezinago **apropos** . Karlos Linazasoro

2 (adizlagunekin)

Azkenean deboziorako egokia eta kontenplaziorako oso **aproposa** zen mendiaren alderdi batera iritsi ziren. Askoren artean

Ganbarak berak duen itxura oso **aproposa** iruditzen zait argazki batzuk ateratzeko. Joxemari Urteaga

Zeharo **aproposa** zen Éowynen edertasunarentzat eta tristurarentzat. Agustin Otsoa

Eman izan den argumentua da ikastolek bere eredua dutela, urteetan landua, eta eredu hori ororen gainetik mantendu behar dela, euskararentzat, Euskal Herriarentzat alegia, oso ona eta bereziki **aproposa** delako. Pello Salaburu

Herriko festa eta neguko dantzaldietako giro hori ez zela batere **aproposa** jendea den bezala ezagutzeko, nahiko jarrera artifizial eta behartuak hartzen baikenituen denok ere, guai, jator eta moderno agertu nahian. Xabier Mendiguren Elizegi

Poto eta guzti, egokiera hartarako guztiz **aproposa** izan zen kantua. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apropos aproposa da (4); **apropos aproposa zen** (3); **apropos aproposak** (3); **apropos aukeratu** (5); **apropos bat** (9); **apropos egin** (3); **apropos egina** (3); **ezinago apropos** (3); **norbaitek apropos** (4); **toki apropos** (3)

adibide aproposa (3); **apropos aproposa da** (4); **apropos aproposa zen** (3); **aproposa aurkitu** (3); **aproposa baita** (3); **aproposa delako** (6); **aproposa den** (9); **aproposa dirudi** (5); **aproposa dute** (3); **aproposa egin** (3); **aproposa ematen** (3); **aproposa ez** (4); **aproposa gerta** (3); **aproposa horretarako** (3); **aproposa iruditzen zait** (3); **aproposa izan daiteke** (16); **aproposa izan zitekeela** (4); **aproposa izango da** (5); **aproposa izango dela** (3); **aproposa litzateke** (3); **aproposa zela** (5); **aproposa zuen** (4); **aukera aproposa du** (6); **aurkari aproposa** (4); **baterako aproposa** (4); **batere aproposa** (4); **bide aproposa** (3); **da oso aproposa** (3); **egiteko aproposa** (3); **egiteko leku aproposa** (6); **egiteko une aproposa** (4); **egun aproposa** (8); **eguraldi aproposa** (3); **entrenatzaile aproposa** (3); **ere aproposa da** (3); **etapa aproposa** (4); **garai aproposa dela** (4); **giro aproposa** (6); **guztiz aproposa** (6); **hitz aproposa** (4); **horretarako aproposa** (3); **izateko aproposa** (3); **izen aproposa** (5); **jardunaldi aproposa** (3); **jokalari aproposa** (6); **leku aproposa da** (7); **neurri aproposa** (3); **ordu aproposa** (3); **oso aproposa da** (4); **oso aproposa iruditu** (3); **partida aproposa da** (3); **partida aproposa izan** (3); **pertsona aproposa** (3); **toki aproposa da** (5); **toki aproposa izan** (4); **une aproposa da** (5); **une aproposa dela** (4); **zelai aproposa** (8); **zen aproposa** (5)

aproposagoa da (5); **aproposagoa dirudi** (3); **aproposagoa izan** (4); **aproposagoa zela** (3); **askoz aproposagoa** (4); **baino aproposagoa** (3); **ezin aproposagoa zen** (4); **leku ezin aproposagoa** (3)

aproposagorik ez (3); **leku aproposagorik** (3)

apropos aproposak (3); **aproposak dira** (3); **aproposak diren** (3); **aproposak finkatuko dira** (3); **aproposak izan** (7); **aproposak ziren** (3); **horretarako aproposak** (3); **jokalari aproposak** (3); **leku aproposak** (4); **neurri aproposak finkatuko** (3); **oso aproposak** (3)

aproposaren bila (5); **une aproposaren zain** (3)

giro aproposean (3); **une aproposean** (6)

aproposena da (3); **aproposena dela** (4); **aproposena denik** (4); **aproposena ez** (6); **da lekurik aproposena** (3); **da zelairik aproposena** (3); **dirudi zelai aproposena** (3); **ez da aproposena** (4); **leku aproposena** (4); **sasoirik aproposena** (3); **tokirik aproposena** (4); **une aproposena** (3); **unerik aproposena izan** (3)

unerik aproposenean (8)

aproposeko ik **apropostako**.

---

aproposko ik **apropostako**.

---

apropostako *(orobat **aproposko** eta **aproposeko**) izlag/izond* apropos egina.

Ahotsa doi-doi heltzen zaidan telebistan, britainiar kazetari bat ari da, **apropostako** lehergailuarekin Londresko Parlamentuko kontrolak pasatzen. triste bizi eta hilko balitz hobe lukeela seguru dakienaren tristura, ez gutxigorabeherakoa, ez bi xentimokoa, ez **apropostakoa**. Iñigo Aranbarri

Bizia -nork esango luke?- alferrik jarduteko gogo bat izan liteke, zulatu ezina, ulertezina; txoroa eta zoroa; arina, eta benetakoa bezain **apropostakoa**. Aukeratu genuen egitegiak, ostera, Bin Ladenek dakarren mehatxuaren indar ideologiko, hiltzeko ahalmena eta haren indarraren hazkuntza onartzeko huts lotsagarri eta **aproposekoa** erakusten du. Iñaki Segurola

-Bada, behin galdetu omen ziotean ea zein zuen gustukoena, Antonio Machado ala Manuel bere anaia, eta Borgesek, harridura **aproposkoaz**, erantzun omen zian: [...]. Pako Aristi

---

aprotxe *iz* hurbilketa.

Unearen solemnitateak eta hizkuntzak hunkiturik naukate, esan zuen Maria Sarak, baina hitz hori, **aprotxe** hori, galizismo beldurgarria da, Bai, hala da, oihalik txarrenean ere orban bat eror daitekeela ahantz ez dezagun izango da, egin dezagun aurrera, baina. Jon Alonso

Eta auzi hura hain Jainkoaren aldeko zelako ustean, garaituko zuela agindu zion bere buruari, gatazkarako Apaltasunaren armak zorroztu eta Otoitzaren **aprotxeak** prestatu zituelarik. Jon Alonso

---

apuko *iz* aitzakia, estakurua.

Aurkezpen handiren beharrik ez duen Fernando Rey itzultzaileak euskaraturiko *Gure etxeko kontuak* liburuan Natalia Ginzburg guraso, neba-arrebak eta lagunak gomutara ekartzen hasiko da etxeko berba eta esakuneetatik tiraka, baita, bidenabar, Sendia deritzogun izate misteriotsua aztertzen eta mataza erabat askatzeko **apukoz**, inguruko gizartea arakatzen ere. Berria - Kultura

---

apuña 1 *iz* pilota jokoan, pilota eskuz jotzea goirik behera.

Agian beso hura ontsa sendaturik, airetikako **apuña** hura eta denak. Herria

Waltari kubanoa, 25 urte, mutiko zimela eta axola gabea, bere gisako **apuña** batean pilota azotatuz ari, laster eta jauzi ezin sinetsizkoen punpekari bat ginuen itsaso hainditik etorria, eta Oçafrain pilotari berezko prestu jokotsuak zion altxatua parioa. Herria

Jendek aldiz **apuñataik** ematen Zalduby-k karia horretara egin kantika berezia: Xipri Arbelbide

2

Gobernuburu sailari **apuñatik** lotua zela eta sail hori nahi zuela (eta duela) segitu... Herria

---

apuño *iz* besagainka jotako pilotakada.

Laburzki erraiteko, atsegin ukan dugu Filipe Mugica bat azkartuagoa ikustea, bere nahikerian eta joan; aire **apuño** hura ere berriz abiatua kausitu diogu, hau ere fermutuko zaiolakoan. Herria

Zer ahalak, **apuño** eta guzi! Baina astelehenean ez da jokoan sartu batere, iduri herabe eta durduzan. Herria

Baina heldu zaio konfiantxa eta erreusitzea uztariztarrari, **apuño** batzu ere xuxen sarerat, Muscarditzendako berriz soberasko irauten kintze batzuk, eta hortan galdu da hau, azken lerroa gazteagoari utziz aise aski. Herria

---

apuñoka *adlag* besagainka.

Waltari Agusti deitzen da kubatarra: mutiko azkarra, beltza dudarik gabe, **apuñoka** jotzen duela pilota sekulako indarrarekin, behar den efetua emanez. Herria

---

apuñotik *adlag* besagainka.

Eta hau ere ari zen polliki, aire hura gainez bortxatu gabe oraino, bereziki **apuñotik**. Herria

---

apuntaldi *iz* apuntatzen den aldia.

Goian seinalatu behatoki arruntek, egunero beha-aldi eta **apuntaldi** bat -goizekoa hain justu- egiten zuten bezala, sei behatoki osatu hauetan hiru ordu genituen seinalatuak, datuak zintzo jasotzeko: goizeko zortzietan, eguerdiko ordu bata edo ordu bietan, eta arratsaldeko zazpiak edo zortziak aldera. Pello Zabala

---

apuntatu, apunta(tu), apuntatzen **1** du *ad* oharpen edo kideko bat paper batean idatzi; norbaiten izena idatzi zerrenda edo kideko batean.

Apuntatu beharko dun okindegiaren izena, ez ahazteko. Iban Zaldua

Ertzean, Ruche jaunak hau **apuntatu** zuen:[...]. Jon Muñoz

Eta hala gertatzen bada, ongi **apunta** ezak, mesedez... -Serio jarri zen bat-batean, eta lepokoa kendu zuen-. Inazio Mujika Iraola

- **Apunta** ! -aldarriz okertu zen! ezin zuela inor hildakoen liburuan **apuntatu** gorpua azaldu arte. Koldo Izagirre

Etxezale izaki, beti ere gertuan nenbilena, egunean hiru bider hartu behar ziren datuak behar zen orduan **apuntatu** ahal izateko, morroi eta ordezko segurua nahi zuen Mendizabalek. Pello Zabala

" **Apuntatu** gaurko afaria nire kontuan", esan nion. Bernardo Atxaga

"Papuasia" eta "Brasil" bertzerik ez nuen **apuntatu**. Aingeru Epaltza

Hotelera iritsi bezain aguro **apuntatu** zuen club haren helbide orritxoa. Joxemari Iturralde

Ez zuela sekreturik izan nahi, ez nirekin ez bere buruarekin, eta ozenki adieraztea kostatzen zitzaion guztia **apuntatuko** zuela. Xabier Olarra

Hitzorduak gogoratu ezinean ibiltzen zinen batzuetan, eta **apuntatu** egin behar izaten zenituen, baina segurtasun neurriak kontuan hartuta dena den. Rafa Egiguren

Inon **apuntaturik** ez badaukat ere -ez daukat ezer inon **apuntaturik** -, ondo gogoratzen dut apenas segundo batez begiztatu nuen zenbaki hura. 943882621. Iban

Zaldua

-Hire kontuan **apuntatuko** diat hau ere? Harkaitz Cano

Pelikan jakintsuak **apuntaturiko** hau gogoratu nahi dizuet puntuan: Baserritarren jakituria adi-adi egoten omen da udaberrian sartzeko puntu honetan. Pello Zabala

Maniobraburua arbel beltzera hurbildu zen, aurreko gauaz geroztik bertan klarionez **apuntatuak** zeudelako zorrotz begiratu beharreko tren guztiak. Fernando Rey

Hantxe, telefonoaren aldamenean, hormako baldosetan zituen **apuntatuak** zenbakirik garrantzitsuenak. Jasone Osoro

Kalendarioan ditut **apuntatuak** joan den urtean egin nituen saio guztiak. Berria - Kultura

Barranquillatik hurbil, Rioquemadon, Urioste familia bizi da eta beren telefonoa **apuntatuta** daukat. Joseba Sarrionandia

Zergatik ez ote nuen eguna **apuntatu**? Arantxa Iturbe

Ez nuen inongo agendatan **apuntatu**, baina handik hartu nuen oroigarri baten bidez dakit. Xabier Mendiguren Elizegi

Libretan **apuntatuta** zituen, eta ilargiaren argitan irakurri zuen: [...]. Joseba Sarrionandia

Saiatu naiz azken hogei urteotan **apuntatuta** nituen auzo eta herrien artean, zerrenda bat osatzen. Pello Zabala

Apuntatuta utzi nizun egutegian, baina bat-batean zalantza sartu zait zure buru kaskar horrekin egutegiari begiratzea ez ote zaizun ahaztuko. Arantxa Iturbe

Nire koadernoan beste gogoeta bat ere **apuntatu** nuen, leku gutxietsietan mamitzen diren erreakzioez. Bernardo Atxaga

Ez nuen inongo agendatan **apuntatu**, baina handik hartu nuen oroigarri baten bidez dakit. Xabier Mendiguren Elizegi

Agendako lehenenego orrian zauzkat **apuntatuta**, badakizu. Javi Cillero

2 su arma bat, begiak eta helburuak eratzen duten lerro zuzenean ezarri. ik**destatu**.

MTGDk pistola atera, **apuntatu**, eta tiro egin zuen. Jon Muñoz

Ezkerreko goardiak ateratzeko agindua errepikatu du eta biek mosketoiaz **apuntatu** dituzte automobilekoak. Pello Lizarralde

Nire 45az **apuntatu** eta bitan egin nion tiro. Edorta Jimenez

Filottik lehendabizi ezkilatxoa jo zuen, gero eskopetarekin **apuntatu** eta tiro bat eman zion. Koldo Biguri

Apuntatu zuen Mattinek eskopeta piztiaren kontra, baina ez zuen desarratzen. Joan Mari Irigoien

Aldameneko garitan guardia zibil bat zegoen goitik behera begira, eta, egoerak gainditua erabat, fusila muntatu eta patiorantz **apuntatu** zuen urduri. Rafa Egiguren

Horixe bera sentitu huen hik bizitzan lehenbizikoz beharbada, oihan hartan, zelatan jarririk, arma altxatu eta ni hiltzeko asmoz **apuntatu** huenean. Xabier Olarra

Beheko suaren gaineko apaltxoan zegoen errebolber bat hartuta, Pepponeren kontra **apuntatu** zuen. Koldo Biguri

Ehiztarien gisara hitz eginez gero, oker apuntatzea izango litzateke, eta, oker **apuntatuta**, tiro egin arren, ezin asmatu, noski. Pello Zabala

Blindatua, inguruko harresia bota eta, poliziak armak **apuntatuta** gainean zetozela, lorategira sartu zenean, hona non emakume bat, gero bi, gero hiru, gero ehun, lokatzetan etzaten diren, eurijasaren erdi-erdian. Josu Zabaleta

Neska-lagunak salatu zuenez, ertzainak pistolarekin **apuntatu** zuen eta autoan sartzeko agindu zion berari. Berria - Euskal Herria

Armarekin **apuntatuz**, gurpilei tiro egiteko prestatu nintzen, baina kantoian bi haur agertu ziren, besoak eskolako liburuz kargaturik zituztela. Xabier Olarra

Berak ikus zezakeen, fusila garbitzen, trapua hartuta, salako munduko bola birarazi eta hari **apuntatuz**. Harkaitz Cano

3 irud/hed

Hatz erakusleaz hari **apuntatuz** geratuko da. Josu Zabaleta

Gizonak zakila eskuan hartu eta honen burua **apuntatu** du zulorantz; hau itxi egiten da indarka, baina lortu du zentimetro batzuk igarotzea hain arreta handiz prestatutako sarreran. Juan Martin Elexpuru

4 da/du *ad* izena eman.

Sozialisten gazterietakoa zen aita eta gerra hasi zenean Larrañaga batailoian **apuntatu** zen. Jokin Urain

Gimnasia maite ez nuenez, eta beste guztian oso nota onak ateratzen nituenez, zalantza askorik gabe Antzerkira **apuntatu** nintzen. Iban Zaldua

Lehenera **apuntatu** zen; ni, bigarrenera. Joxe Austin Arrieta

Filosofia amaitu nuen urte hartan, udalekuetara joatekoak ziren gure koadrilakoak, eta neu ere **apuntatu** nintzen horretara. Joxerra Garzia

Aurrena solfeoan **apuntatu** ninduen amak, hamar bat urte nituela. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero txistura **apuntatu** ninduten, notak irakurtzen banekiela baliatuta, baina hor ere ez nintzen oso ona izango, oso saiatua ez behintzat, eta, urtebete pasata, utzi egin nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **apuntatu behar** (5); **apuntatu du** (6); **apuntatu dut** (3); **apuntatu egingo** (4); **apuntatu nahi** (5); **apuntatu nintzen** (3); **apuntatu nuen** (8); **apuntatu zuten** (3); **batean apuntatu** (7); **ere apuntatu** (4); **hau apuntatu** (4); **ondo apuntatu** (3); **pistolarekin apuntatu** (3)
>
> **apuntatzen ari** (5); **apuntatzen du** (5); **apuntatzen zituen** (4); **apuntatzen zuen** (7); **batean apuntatzen** (5); **guri apuntatzen** (3)

---

apuntatzeke *adlag* apuntatu gabe.

Konturatzerako, zertara zihoan pentsatzeko denborarik gabe, ia **apuntatzeke**, katua sakatu eta danbatekoaren oihartzuna zuhaitz bakoitzean errepikatu zen. Joxemari Urteaga

---

apunte **1** *iz* zirriborroa.

Alde egin aurretik, Papik dena konponduta zegoela adierazi zigun, erreserbatuta geneukala gela, eta panfletoak ere han zeudela jadanik kartoizko kaxetan **"apunteak"** bailiran. Bernardo Atxaga

Apuntea hartzen dut: konstruktibismoaren eredu zuzena da hemengo nahastura. Edorta Jimenez

Libreta atera eta **apunteak** hartzen hasi da. Harkaitz Cano

Antropologoa da, eta **apunteak** hartzera etortzen da futbolera, edo mozkortzera. Karlos Linazasoro

Asko idatzi, asko irakurri, **apunteak** hartu eta asko ezabatu. Ana Urkiza

Kameralarien arduraduna zirudien kazetaria heldu zen, neska gazte bat, euskalduna, eta galdezka hasi zitzaigun nor epaitzen zuten egun hartan eta nor ginen eta nongoak eta dena **apunteetan** hartzen. Koldo Izagirre

Idazlea hurbildu zenean, ikusi zuen agurearen aurrean zegoen margolariak, idazlearen lagun mina zen pintoreak, **apunte** ugari hartzen zituela: gorpuzkera, keinuak, aurpegiaren kera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Apunteak eta oharrak idazten zituen bere koadernotxoan. Joan Mari Irigoien

Niretzat ere gauza bera da **apunteak** idaztea: arnasa hartzeko modu bat, begiratzeko modu bat, bizitzeko modu bat. Berria - Kultura

Ikasle garaian **apunteak** pasatzen zizkion. Unai Iturriaga

Ikasle garaian **apunteak** pasatzen zizkion. Unai Iturriaga

Eskerrak lagunek **apunteak** uzten dizkidaten!. Berria - Kirola

Orain, lehen bezala, ipuinak, poemak eta beste idazten jarraitzen dut... eta horretaz gainera, **apunteak**. Berria - Kultura

Utzi behar dizkidazu **apunteok** -esan du Enrikek, atera lagundu bitartean. Iñaki Iñurrieta

Hemen, hiru norabide urratzen saiatuko gara, **apunte** moduan, bestelako asmo handirik gabe. Patxi Altuna

Apunteen karpetan Fowlesen esaldi bat kopiatuta zeukan, bolalumaz, eta osorik gogoratu nuen: "Munduak sortu nahi ditugu eleberrigileok, iraganeko edo egungo munduak

bezain errealak, baina, aldi berean, bestelakoak liratekeenak". Iban Zaldua

Oihuak eta diosalak, bezperan telebistan emandako programaren bati buruzko esamesak, **apunteen** trukaketa, arratsaldean Portuko festetara joateko planak. Anjel Lertxundi

Lluis Fontek esaten zuen guztia zen **apunteetan** jasotzeko modukoa. Joxerra Garzia

"Ubanberengana joan hintzen bezala? Apunteak hartzera?" Ubanberena halabeharrezko gauza izan zela erantzun dit, eta ez zuela inolako **apunterik** behar. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ganbarara igo, eta kaxak eta karpetak arakatzen hasi naiz; gehienetan ez dut topatu hautsa eta unibertsitate-garaiko liburu eta **apunte** horiztatuak baizik. honela segi genezake bere nobeletako bakoitzarekin, azkenean konturatzeko guztietan agertzen direla idazlearen gai nagusien aztarnak, batzuetan **apunte** txikien moduan, ereindako haziak bailiran; hurrengo batean lore, zuhaitz, fruitu bihurtuko diren haziak. Iban Zaldua

Estiloaz, **apunte** interesgarriak, hona biltzeko modukoak zenbait: [...]. Iñigo Aranbarri

Lotura horren atzean legokeen mitomania **apunte** soil gisa utzirik: [...]. Anjel Lertxundi

Urriko noten ostean, han zihoan **apunte** berezi bat, hilaren 11ko ekaitz larriaren berri emanez eta segido beste notatxo bat, "ixtrumenteriarik izanez gero, oso gustu handiz bilduko lituzkeela beste hainbat datu ere", propio lanerako bere burua eskainiz. Pello Zabala

Orduko kontu horiek entzun, ordukoaz idatzitako gogoeta eta **apunte** maiztuak irakurriz isilik sumatzen dut Mario nire ondoan batzuetan, pentsakor, bestek bizi izandakoa eta berari egokitu zaiona mataza berean bereizi nahian bezala. Jokin Urain

Hau ez da kritika bat, **apunte** karakterologiko xumea baizik. Jon Alonso

Bestela lagunekin joango nintzen kanpinean aste pare bat pasatzera nora edo hara, baina ezin eramango nituen anatomiako **apunte** eta liburuak motxilan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hemen ez dut arestiko **apunte** etno-antropologiko hau egiteko tentazioa saihesterik izan. Jon Alonso

Apunte ezin txukunagoak kopiatzen. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan)

Bere memoria madarikatu zuen eta **apunte**-karpeta buru gainean gerizatzat erabiliz korrika atera zen berrehun metroz harantzago zegoen metro-irteera baterantz. Joxemari Iturralde

Liburuaren edukira mugatu gabe, Patxi Altunaren itzulpenak ere merezi ditu beste bi hitz, nahiz eta oraingoan **apunte**-izaera nabarmenagoa izango duten. Patxi Altuna

Horren argibiderik lehen eskukoena bilduma honetako *Borges eta ni* aitortza-**apunte**, hausnarketa bio-metafisiko, poema hitz-lauzko edo dena delakoan aurki daiteke. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apunte batzuk** (4)
> **bere apunteak** (4); **nire apunteak** (3)

---

apunteria *iz* punteria.

Aita, maisu baldarra, ama-semeak bidaia batetik heldu direlarik "amagana luzatu ditu besoak, huts egin du; nigana jiratu da, saiatu da musu bat ematen, **apunteria** txarra du; ez du xantzarik besarkadekin, ez du zoririk musuetan". Pablo Sastre

---

apuntetxo *iz adkor* apunte laburra.

Liburua azpimarratuta zegoen, in margine egindako **apuntetxoak** eta guzti. Anjel Lertxundi

Apuntetxoa hartu, egunez pare bat bider errepikatuz ikasi, eta han grabatu nuen ostiral arratsaldean, paseotik etorrita. Pello Zabala

Liburua erosi nuen, liburuaren beraren interesagatik baino, adiskidearen **apuntetxoekiko** jakin-minez. Anjel Lertxundi

Kantuaren azpian, **apuntetxo** bat idatzi nuen: "Izena Aureliano Buendía bezain eufonikoa daKantuaren azpian, **apuntetxo** bat idatzi nuen: "Izena Aureliano Buendía bezain eufonikoa da". Anjel Lertxundi

---

apur **1** *iz* zerbaiten zati txikia; azken-azken buruan geratzen dena.

Banan-banan aletuko ditugu zuhaitzon kontuak, eta baita urtearen lau kantoietan ospatzen zituzten beste lau festa handi horien berri **apurrak** ere. Pello Zabala

Aberatsaren mahaitik eroritako ogi **apurrak** dira horiek: aberatsak erdeinatzen ditu; baina pobreak lehiaz biltzen ditu eta hura du bazka. Jon Muñoz

Finished txerpolari iruzurtien erregearen eta trikko-trakkoa-ren eta irin magikoaren historia, eta ogi-**apur** batzuk eskuratzeko irrikan zeuden etxegabeena. Fernando Rey

Eta ez nuen nahi izateko ahalegin **apurrik** egin; zentzurik ba ote du, bestalde, inor desiratu nahi izateak? Xabier Mendiguren Elizegi

Eguna argitzen hasia, plazerraren azken **apurrak** artean dastatzen gure gizona etxera itzuli zenean, emaztea hilda aurkitu zuen egongelan, lepoa ebakita. Migel Angel Mintegi

Zenbatetan ez dut Maureenen izena ene nabalaz mortuko zuhaitz **apurren** enborretan zizelkatu? Itxaro Borda

Apur bakoitza inguratu, zuzenki bizkarreratu eta aitzina jarraitzen dute, senak-edo hala manaturik. Xabier Montoia

Lagunekin parkera jaitsi nahi baduzu hobe duzu ogi-**apurrik** ez uztea, ados? Iban Zaldua

Hamaika gauza zoragarri irakurri izan ditut gizakiari buruz, nik eskainiko ditudan **apurrak** baino askoz ugariagoak eta hobeto esanak. Jenaro Garate

Azken zorigaitzen ondotik - aitak gogo txarrez eta zabarkeriaz egindako kudeaketa, amaren gaixotasuna, Vilmaren ezkontza eta heriotza, Laciren negozioan ezarri zen dirua -, hondar batzuk besterik ez ziren gelditu, eta **apur** hura Lajosek xurgatu zuen kapilar ikusezin batzuen bidez. Ander Irizar

Hertzainaken kanta batek ezabatzen zituen solasean lasai jarduteko aukera **apurrak**, eta beheko solairurantz jaisteko ahaleginean hasi ziren, ahal zen bezala jendetza artetik pasatuz. Iñaki Iñurrieta

Sargori eguna izan zen goiz-goizetik, eta baratzera mahai-aulkiak aterata, gaueko freskuraren **apurrik** ere galdu nahi ez genuela, ilargipean afaldu genuen. Xabier Montoia

Informatuta gaudelako sentsazioa dugu, baina iturburu **apur** batzuen emaria baino ez gara jasotzen ari. Txema Ramirez de la Piscina

Negu hartan, ordea, ahuntza erroitzean amildu, azkonarrek artoak eta babarrunak jan, mahats **apurrak** izoztu, su izugarri batek burutu zuen etxaldeko hondamendia. Pablo Sastre

Hitz **apur** hauekin aski behar zenuke; eta, nire aukeraz ohoratuegirik, behar zenuke jin, laster eta fite, nire manuak belauniko entzutera: nire ontasunak neurriz gain atxikiak dituzu ordea, nahiz jadanik baliatzen ez dituzun; eta herra eternalaren edo bihozberatasun soberazkoaren artean hautatu beharraren karietara, bozkaria [...] Jon Muñoz

Herri horri buruz ere baditut galdetu nahi nizkizukeen kontuak, hango jendearengan baititugu jarriak gure esperantza **apurren** gehienak. Agustin Otsoa

-Apurrik ere ez dago etxe osoan. Koro Navarro

Ez zitzaiola inporta diru gutxiago sartzen bazen etxera, eta, dena dela, beti egin zezakeela gaueko txanda gehiago, galduko zuen **apur** hura konpentsatzeko edo. Iban Zaldua

Ozta-ozta ausartzen zen zerbait jaten, ogi **apurrak** botatzeko eta platera zikintzeko beldurrez. Karlos Zabala

Markes elizan sartzen bazen, mutilek esertzen ziren bankuen azpian ogi-**apurren** bat utzi ote zuten ikusteko izaten zen, ez beste ezertarako. Koro Navarro

Leitzako alkate batek aitortu zidan behin, oharkabean edo: egun ez dela alkatetza, finezia **apurrik** duen jendearentzako egina. Patziku Perurena

Izan ere, horixe nahi omen du Etsaiak (nork?): gu (nor?) bat eginik egon beharrean, elkarren kontra ari garela eta ditugun indar **apurrak** nola higatzen ditugun ikustea;

horrekintxe hartzen omen du atseginik handiena. Iñaki Segurola

Bizitzak gosez amorratzen jan gaitu gu biok, bai gogotik jan ere, zorrotz-zorrotz, mokadurik handiena **apur** bihurtzen duen goseaz. Jon Muñoz

Uzta ederra espero zenuten eta eskasa bildu. Etxean jaso duzuen **apurra**, berriz, putz egin eta sakabanatu egin dut. Elizen arteko biblia

Poesiak, gainerako arte guztiek bezala, badu, eta ezinbesteko du, gainera, onanismotik - kanpaia zein arrabita jotzetik - bere **apurra**. Joxerra Garzia

Zizka-mizken mahai luzea **apurrez** eta hondakinez naskiturik dago. Edorta Jimenez

Burusi batean bildurik: argazki bi, ogi **apur** bat, txokolatea, gazta laurden bat, alkandora bat, galtzontzilo eta galtzerdi pare bat, eta galtzerdien barruan 25 ogerleko. Eider Rodriguez

Bentariak eskuan zeraman zapi zikinaz mahai bat garbitu zien soldaduei, mugimendu nagi eta gogogabe batez ogi **apurrak** lurrera botaz, ondorioz, mahaia zikinago utzirik, baina ez zirudien soldaduei axola handirik zienik, berehala eseri baitziren seiak mahai inguruan zeuden zurezko aulki beltz banatan. Felipe Juaristi

urteetan elkarrekin topo egin genuenetan ateratako argazki **apurrak**. Edorta Jimenez

Eginahal mingarriez, lokarriek uzten zidateneraino luzatu nuen ezkerreko besoa, eta arratoiek utzitako **apurrak** neureganatu nituen. Koro Navarro

Izan ere, bitartean, Federicoren soldatako diru **apurrak** denak bisitetan xahututa, goseak hiltzeko arriskuan ere baginen, ezin jakin. Pello Lizarralde

Zeuzkan gauza **apurrak** bildu eta nire tabernara azaldu zen, hemezortzi urte berde besterik ez. Pako Aristi

Hautetsiek eta hauen mutilek errepikatzen ziguten orduan, ahoak eman ahala, Euskal Herria ez zela nasaiki sustatu eta **apurren** moltsen onerako metodikoki planifikatu Turismorik Gabe Bizitzen Ahal. Itxaro Borda

Nola hitzak oro ez ziren aski zenbaitetan gizakiaren baitakoa askatzeko, hala ziren aski **apur** batzuk bestetan ia dena beren baitan biltzeko. Imanol Zurutuza

Berriro ilargia, Txaikovskiren vals urruna kristalezko mila **apurretan** suntsitua, harrizko oroitarri bihurturik; higuina, mina titi-erroetan, Robertoren aurpegi gorrotagarria, atzeraka bultzatu nahi zuen gorputz gihartsuaren zama astuna, ezintasuna, Robertoren mingaina, higuina... Aritz Gorrotxategi

Aitzitik, ez diete inolako burukominik eragiten administrazioren mahaitik eroritako ogi- **apurrak** ere hartzeko eskubiderik ez duten hizkuntzek. Anjel Lertxundi

Aho inguruan ogi eta gazta **apurrak** lerdearekin nahastu zaizkio, eta muki berde batzuk sudurreko leihoetan agerian dauzka. Jokin Muñoz

Gauzak zeuden egoeran egonda, bazirudien eroaldi bat-batekoa piztu zutela nire hitz **apur** haiek epaiketa hurbiletik eta bertatik jarraitzen zuten guztien artean. Hasier Etxeberria

Gantz **apurrik** ere ez. Aingeru Epaltza

Hamazazpi urte luzez ilunabar bikainak esperantzarik gabe ikusi ondoren, azkeneko hamabost hilabetean argi izpiak batez ere zapuzturik jasan ondoren (hauek bai gogorrak!), etxera bidaliak nituen neure **apurrak** oro, koittadu honek. Txillardegi

Neure kaskarraren gainean, neure boneteko tapakian barrena, eguzkiak galda betean jotzen zuen, beldurgarri, eta zerebroan oraindik borborka zebilzkidan azken pentsamendu **apurrak** hiltzen. Matías Múgica

Eta bada hor, jakina, aurreiritzi ideologiko eta estetikoetan oinarriturik, Krugmanen eta antzeko tesiei inolako baliorik, **apur** txikirik ere, ematen ez dioten ultrakritikorik. Iñaki Heras

Ama eta Margot ez ziren lanik **apurrena** ere egiteko gauza, egin gabe zeuden oheetan etzanda zeuden, nekaturik, ezertarako gogorik gabe eta ez dakit zer gehiago, baina aitak eta biok, familiako "dena ordenan eduki beharreko" biok, lehenbailehen nahi genuen hasi. Josu Zabaleta

Lo egiten, jaten eragozten zidan eritasuna, eta jandako **apurrak** goitikarazten zizkidana. Alberto Ladron Arana

Zuri menturaz, irakurtzaile maitia, iduriturен zaitzu gauza gutiak eta **apurrak** derauzkitzudala hemen aipatzen; bainan go emazu huni: herriak eta jendaiak bakan direla estropu handiz galtzen, bainan maizenik galtzen direla beren ardurako bizimoldeak erortzerat utziz. Xipri Arbelbide

2 *izond* txikia, urria.

Erotasun hori ez duk zuhurrak beharko lukeen erotasun **apurra**, Virgiliok erraiten zuen bezala, baina ero baten erotasun handia. Joan Mari Irigoien

Lasai bizitzea gustatzen zitzaion eta zeukan harreman **apurra** Sergiorekin zen. Jasone Osoro

Gainera, Versailleseko itunak gelditzen zitzaigun odol **apurra** xurgatzen zigun. Alberto Ladron Arana

Ibilera baldarrez igo da, bizarra egin barik eta ile **apurra** urdinduta. Urtzi Urrutikoetxea

Estatua sobera ona dela gurekin, ez dugula dugun diru **apurra** ere merezi. begiak urrun, medikuengan zuen fede **apurra** galdurik, erreumak hezurretan eragiten zion minarekin kexu eta arranguratsu. Itxaro Borda

Herritarrak, gantza gerrian eta irri bortxatua ahoan, diru **apurra** eskuratzearren larruz saltzen ziren. Itxaro Borda

Nicolas Sarkozy barne ministro frantziarrari dagokio Frantziako Iraultzatik geratzen zen ondare **apurra** likidatu izanaren ohorea. Joxerra Garzia

Ez zenuen Patricia ondo hezitzen jakin, senarra galdu duzu eta geratzen zaizun duintasun **apurra** ere galtzen ari zara. Xabier Montoia

Asteburuetan izaten genuen geure mugimendu **apurra**, dela inguruko herriren bateko jaietan, udaberritik udazkenera bitartean batik bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Halaz, armada herrikoi mitifikatuen alderako autonomia **apurra** premiazkoa zaigu, egoeraz, orainaz eta geroaz pentsatzeko. Itxaro Borda

Esperantza **apurra** xerkatu behar duzu inguratzen zaituzten jende eta gauzetan. Itxaro Borda

Horretan oinarritzen da gure itxaropen **apurra**; izan ere, etsaia kontu bakar batean dabil herren: zaldizko gutxi ditu. Agustin Otsoa

Zenbait tokitan, azaleko zanga-zulo suntsituak baino zertxobait gehiago ziren, eta aterpe gutiziatu bezain **apurra** eskaintzen ziguten-. Mirentxu Larrañaga

- **Apurra** da, era berean, eszenografia bertsolarien saioetan: bertsolari hainbat aulki paratzen dira oholtza gainean, bizpahiru mikrofono eta, batzuetan, oihal bat edo pankarta bat izaten dute hondoan, lore batzuk agian bazterretan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aurpegi-mimika oso **apurra** da, halakoa izan da, behintzat, orain arte. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

2 *apur bana*

Ordu arte itzal bat bezala bizi izan zuèn bertze kezka hark bere lekua eta bere gorputza aurkitu ote zituen **apur bana** aitonaren baitan? Joan Mari Irigoien

Eta nik ez dakit zer gertatu zitzaidan orduan, bihotza harenganat erortzen hasi zitzaidala **apur bana** ... Joan Mari Irigoien

3 *apur bat*

Irribarre gozoz beha geratu zen **apur batez**. Aritz Gorrotxategi

Auzoko jendea ezagutu eta party batera gonbidatuko zaituzte azkenean zorte **apur batekin**. Harkaitz Cano

Segi niri **apur batean**. Iñaki Mendiguren

Poetak arren eskatu zion berekin solasta zedin **apur batez**. Juan Garzia

Mahaian geunden bezalaxe atseden **apur bat** hartu ondoren, batzuek elastikoak eta besteek kamisetak erantzi eta errekara abiatu ginen gau betean xaboi pixka batez geure burua garbitzeko asmoz. Aitor Arana

Tira, azken hilabete eta erdiarekin nahigabetuta gaude **apur bat**, puntu gutxi lortu ditugulako bolada txar horren ondorioz, hasieran lortu genituenekin konparatuta. Berria - Kirola

Buruzagien artean atzerritarra erruz zegoen, inauteri tankera **apur bat** zuten beren uniforme austriar, italiar eta frantses dotoreez jantzita. Koro Navarro

Idazle oro idazteko sen pixka bat duelako da idazle, ez zuzentasunaren esentzien jabe delako; trebetasun **apur bat** duelako, letra eder samarrez istorioak kontatzeko edo sentsazioak adierazteko orduan. Anjel Lertxundi

Merezi du, dena dela, **apur batez** gelditzea orain gure inguruan dauden ereduetan eta horien jatorria ulertzeko ezagutu behar ditugunetan, ahalegin berezia eginez noski euskararen ikerketan oihartzunik izan dutenetan. Lourdes Oñederra

Amak argizari **apur bat** bildu zuen egurrezko makila antzeko batean eta gero bernan zabaldu zuen, goitik behera. Jasone Osoro

-Ba, zera.. . badakizue.. . laguntza **apur bat** baino ez. Iñaki Mendiguren

(Eta, apur- **apur bat**, entzuna duelako ere bai, demokrata on bat izan behar duela). Joxe Azurmendi

Ligan egoera larria da, baina azken jardunaldietako jokoak esperantza **apur bat** eman zien jokalariei, teknikariei eta zaleei. Berria - Kirola

Neskatoa ez zen **apur bat** ere higitu. Ibon Uribarri

Ongi da gaztelera **apur bat** hitz egitea; baina bascuence hitz egiten da hemen bereziki. Koldo Izagirre

Apur bat eskuin aldera, ile-eskuila bat. Joseba Urteaga

Abrahanek lagundu egin zien **apur batez**, agurtu aurretik. Jose Antonio Mujika

Pedro betidanik gustatzen al zitzaion galdetuta, lotsatu egin zen **apur bat**. Pako Aristi

Alavesek eta Athleticek elkarren aurka jokatuko dute gaur Gasteizen; bi taldeen azken emaitzek egoera **apur bat** baretu dute. Berria - Kirola

Hori dela eta, badira euskaldunok lotsa **apur batekin** esaten ditugun hitzak: aberria, Euskadi... Patziku Perurena

Grossmanek bazuen, horregatik, itxaropen **apur bat**. Felipe Juaristi

Haurdunaldia eteteko zer egiten den azaldu diot, eta, hala, Karmeleren aurpegia eta begirada lasaitu egin dira **apur bat**. Luis Elberdin

Oraindik ere aurki zezakeen txoko goxoren bat pozik bizitzeko, baldin eta neska on arrunt bat topatzen bazuen diru **apur bat** zuena. Irene Aldasoro

4 *apur batean*

Iparra altxatu duk, eta igual komeni zaiguk **apur batean** oinez egitea. Edorta Jimenez

Saltokitik irten, eta begiak itxi nahi zituen **apur batean**. Xabier Olarra

Baietz nik; eta nire ingeles motzean, hala nahi izanez gero elkarrekin irten gintezkeela diotsot, **apur batean** itxaroteko. Edorta Jimenez

- Dudan ibili nauk **apur batean**, hi ote hintzen. Urtzi Urrutikoeetxea

Itxaron **apur batean**, Joan beste lineatik ari duk eta. Antton Olano

Meteorologoen arabera, asteburuan tenperaturek gora egingo dute **apur batean** baina hotz-boladak hilaren amaiera arte iraungo du. Berria - Mundua

Apur batean horrela egon eta besoak luzatu zituen. "Tira, Susie koitaduari ez litzaiokek gustatuko ni hemen ikustea... Lopez de Arana

Maria etxekoandreak eta haren alabak lagundu diote Leonengana, baina, gelan aurrera egin baino lehenago, **apur batean** atean itxaroteko eskatu die Damianek. Hasier Etxeberria

Polizia etxe batean sartzen bada eta **apur batean** egon, sikhek poliziaren laguntzailetzat hartzen dituzte eta garbitzen. Gotzon Garate

Egongo gara **apur batean**. Matías Múgica

Maria Bautistak **apur batean** itxirik izan ditu begiak. Patxi Zubizarreta

Caponek **apur batean** lankideen solasa utzi eta Fernandorengana jo zuen. Lutxo Egia

Eromenak hartua dago guztiz; eta halaxe iraungo du **apur batean**. Juan Garzia

-Bai, ezta? - xuxurlatu zuen, negar malkoak **apur batean** etenik. Karlos Zabala

Berak ere hartuko zuela, **apur batean** itxaroteko. Iban Zaldua

Isilik geratu zara **apur batean**. Lourdes Oñederra

Segi niri **apur batean**. Iñaki Mendiguren

Gelditu egin zen **apur batean** Léa, eta berriz ekin gero, sarkasmoz. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

apur apurka (11); **apur bana** (18); **apur bat** (2599); **apur bat baino** (14); **apur bat behera** (12); **apur bat besterik** (14); **apur bat egin** (30); **apur bat eman** (26); **apur bat emateko** (11); **apur bat ematen** (30); **apur bat ere** (54); **apur bat falta** (14); **apur bat gehiago** (71); **apur bat geroago** (17); **apur bat harrituta** (14); **apur bat hartu** (17); **apur bat hobetu** (11); **apur bat izan** (12); **apur bat lasaitu** (18); **apur bat lehenago** (16); **apur bat urrundu** (12); **apur bat zabaldu** (18); **apur batean** (135); **apur batek** (12); **apur batekin** (82); **apur baten** (44); **apur batera** (17); **apur batez** (127); **apur batzuk** (28); **atseden apur** (14); **atseden apur bat** (13); **baina apur** (25); **baina apur bat** (22); **baino apur** (56); **baino apur bat** (56); **beldur apur** (23); **beldur apur bat** (20); **beste apur** (11); **burua apur** (27); **burua apur bat** (27); **denbora apur** (57); **denbora apur bat** (45); **diru apur** (42); **diru apur bat** (35); **egin zen apur** (13); **egoera apur** (12); **egon apur** (17); **egon apur batean** (12); **handik apur batera** (13); **indar apur** (11); **indar apur bat** (11); **itxaron apur** (25); **itxaron apur bat** (12); **lasaitasun apur** (13); **lasaitasun apur bat** (11); **lotsa apur** (29); **lotsa apur bat** (22); **ogi apur** (16); **pena apur** (12); **pena apur bat** (11); **ur apur bat** (12); **zorte apur bat** (13); **zorte apur batekin** (19)

apurra ere (14)

aukera apurrak (11); **ogi apurrak** (30)

---

apuratu[1], apura(tu), apuratzen da *ad* larritu, urduritu, estutu.

Trumoi soinuarekin, ez **apuratu**! Pello Zabala

Elkarrizketa egin nahi niola eta **apuratu** egin zen. Pako Aristi

Lehen bezalatsu zaudela? Ez **apuratu**, itxaron. Pello Zabala

-Ez **apuratu**, Jaengo oxtabena aurrean geldituko naiz zapatuan eta domekan, eta etarrak bisitatzera etortzen diren beste etarrak datozenean, haietakoren batekin hitz eginen dut. Koldo Izagirre

Zuhaitz lerdenaren punta hegian, harro ari denean, lasai, ez **apuratu**...! Eguraldi ezin hobearen zantzuak ei dira horrelakoak. Pello Zabala

Iskanbila berehala heldu zen liburudendaraino eta emakume gaztea **apuratuta** hurbildu zen atera. Harkaitz Cano

Zalukara, **apuratuxe** etorri zen Larraitz. Pablo Sastre

Prusiarra eta ni barrez hastear gaude, baina **apuratuegi** ikusten ditugu ingurukoak. Harkaitz Cano

Ez dela horrenbesterako izango, ez **apuratzeko**!, esan ohi dut nik. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ez apuratu (11)

---

apuratu[2], apura(tu), apuratzen du *ad* ezer gelditzen ez den arte kontsumitu.

Anek kafea **apuratu** zuen, eta: [...]. Pablo Sastre

Zigarro mutxikina **apuratu** zuen. Pablo Sastre

Barre egin eta, bere basoa **apuratuta**, Larrak: [...]. Pablo Sastre

---

apurka 1 *adlag* kopuru txikietan; ez behingoan. ik **pixkanaka**.

Apurka izan bada ere, arlo horretan urrats handiak egin ditugu aspaldion. Berria - Euskal Herria

Apurka ohitzen ari naiz kamera aurrean agertzera. Berria - Euskal Herria

Apurka hildako gizon torturatu baten gorputza? Bernardo Atxaga

Apurka, oneratzen ari zen. Bernardo Atxaga

Apurka, begiak ñarrotuz, ohitu naiz. Koldo Izagirre

Apurka, ordea, kontzeptu horrek ezaugarri lazgarriagoak bereganatu zituen. Berria - Gaiak

Mantso, benetan, baina pixkaka, **apurka**, batean hasi eta ezin, bestera aldatu. Pello Zabala

Gauak, **apurka**, berez izan zezakeen isil antzeko tonua berreskuratu zuen. Fernando Morillo

Amaia, baiki, berezkoa zuen alaitasuna **apurka** galduz joan zen debeku haiengatik, lantxurda goizeko eguzkipean desegiten den bezalatsu. Josetxo Azkona

Bertsolaria **apurka** egiten da. Andoni Egaña

Ohartarazi zuenez, "kontsumo pribatua **apurka** hazi egingo da datozen hilabeteotan". Berria - Ekonomia

Baina **apurka** mina arintzen hasi zitzaidan, azken minutuetan egin zen isiltasun erabatekoak izango zuen hartan zer ikusirik. Anjel Lertxundi

Gobernuak eta Armadak ez zioten hasieran garrantziarik eman mugimenduari, baina **apurka** herritarren babes handia eskuratzen joan zen, jende ugarik antzinako erregimenaren alternatiba bakartzat ikusten baitzuen. Berria - Mundua

Baina bada bizitzan epe bat eta aro bat, zeinean haurra **apurka** gizontzen den, eta bertze aterbe batzuk bilatzen dituen, ohartu ere gabe batzuetan, baina baita ongi oharturik ere bertzeetan, nola izan baitzen ene kasua. Joan Mari Irigoien

Eta, hala, **apurka**, bere inguru hartarik bakartzen hasi zen eta egun batean isilik egoiterat deliberatu zen. tratu bat egin genezakeela, egunero zigarro bat gutxiago errez eta kontsumoa, **apurka**, erdira jaitsiz, gero beste erdira eta beste erdira, ohitura txar hura errotik kendu arte. Joan Mari Irigoien

Heriotzaren beldurra **apurka** agertzen hasi zen beraren baitan, bultzaka bezala: bazirudien norbaitek heltzen ziola eta ukabilaren indar guztiarekin behetik gora bultzatzen zuela bihotza. Jose Morales

Baina, gainbehera **apurka** eta poxika abiatzen denean, malkarrak berak egiten du pendiza. Pello Zabala

Horrela, **apurka** eta azpitik, unibertsitarioon arteko lankidetza sareak sortuko dira eta, eta egoera politikoak bidea irekitzen dienean bakarrik, erakundetu ahal izango dira harreman horiek. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ez du balio hauspoa haizez bete eta gero **apurka** hauspo hori hustutzen joateak. Andoni Egaña

Linterna goratu zuen **apurka** eta berari esker ekin zion aurrean zituen objektuak zehatzago identifikatzeari. Josu Landa

Etxekoak, Elkartearen eskutik dabiltzanak, ari dira lanean **apurka**. Andoni Egaña

Hala ere, EHU gorpuzten joan zen **apurka**. Berria - Harian

Harrizko gelaren leiho handienetik, juxtu-juxtu Ireneren atzean zegoenetik, ilargi betea azaldu zen, **apurka**. Fernando Morillo

Rekexoren amorrua areagotzen ari zen **apurka**. Joxemari Iturralde

Ohartuta, garra itzaltzen utzi zuen, **apurka**. Fernando Morillo

2 ***apur-apurka*** *adlag*

Apur apurka ohartu naiz neure zelulak direla minbiziaren eragileak. Joseba Sarrionandia

Sare neuronal artifizialei behintzat horixe gertatzen zaie, **apur apurka** hilez gero ikasitako guztia atzekoz aurrera pasatzen zaie, bere siliziozko bizitza desikasiz bezala, ez dira inkoherentziatan galtzen, baizik eta lehen bizikizunetara itzuliz. Joseba Sarrionandia

Puntu zuria hodeiertzean agertu eta **apur apurka** handituz etorriko da, harik eta ataka odoltsutik sartu eta badian norvegiar industrialdea topatu arte. Joseba Sarrionandia

3 ***apurka-apurka*** *adlag*

Apurka-apurka aurrera egin genuen, eta lehen sailkatuetatik gertu jarri ginen. Berria - Kirola

Apurka-apurka berreskuratu zuen arnasaren erritmoa. Paddy Rekalde

Apurka-apurka heltzen duk bat xedera. Antton Olano

Apurka-apurka, subjektibotasunaren ideia hura gizabanakoarekin, andre eta gizon konkretuarekin, lotuz joan zen. Bernardo Atxaga

Apurka-apurka, zuzien sugarrak moteldu eta itzali egin ziren, eta Merry ilunpean zebilela ohartu zen. Agustin Otsoa

Baina **apurka-apurka**, erroldan agertzen diren euskaldunen kopurua gora egiten ari da, eta, %45 gainditzen denean, gehiago izan beharko dira Jaurlaritzak herritarrei eskaini beharreko zerbitzu elebidunak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Orokorretik partikularrera pasatzeak beti berekin dakar ezuste kitzikagarririk, noiz eta ere isla zehatzik gabeko arerio-kide beldar-irudi hori aurrean definituz baitoakizu, **apurka-apurka** zein bat-batean. Juan Garzia

Emakumeak ere **apurka-apurka** joan dira beren lekua irabazten Unibertsitatean, eta 92-93 ikasturtetik gizonezko ikasleak baino gehiago dira. Berria - Harian

Gertakaria **apurka-apurka** doa gauzatuz eta zentzua hartuz. Juan Garzia

Egunez egun, **apurka-apurka**, betidanik izan behar zuen gizon hura bihurtu zuen. Oskar Arana

Zein opari handia ama izatea, zure erraietan hazi txiki bat eraman ahal izatea, gero, **apurka-apurka**, loratuko dena eta izaki babesgabe bihurturik argia ikusiko duena. Karlos Linazasoro

Baliteke **apurka-apurka** adiskideak bihurtzea ere. Oskar Arana

Hortik aurrera, adinak **apurka-apurka** indarra eta sendotasun heldua hausten du eta okerrerantz urtzen da. Xabier Amuriza

Esan nahi dudana da antsiolitikoen, lasaigarrien eta pilula antidepresiboen dosia **apurka-apurka** jaitsi beharrean zegoela, **apurka-apurka** beregana zezan inguruarekiko interesa, eta aurkitu, era berean, bere tokia bizitzan eta munduan, gutxieneko oreka baten barnean. Joan Mari Irigoien

Lurra munduaren erdigunean geldi egon dadin, pisua txikitzea eta **apurka-apurka** ezabatzea komeni da, eta azpian beste subs-tantziaren bat egotea, sorreratik berarekin lotua eta munduaren airezko parteekin, non bera kokatzen den, bat egina. Xabier Amuriza

Ez da konturatzen **apurka-apurka** dena andeatuz eta hondatuz doala, bizitzako ibilbide aspaldikoak ahitua. Xabier Amuriza

Globalizazioaren ezaugarri nagusia, ikusi den bezala, ondasunen, zerbitzuen eta kapitalen munduko merkatuak **apurka-apurka** bateratzea da, baina era berean da haren ezaugarria ekoizpenaren integrazio gero eta handiagoa, mundu osoan. Koro Navarro

Emakumeen egoerak, aldiz, **apurka-apurka** hobera egin du. Berria - Ekonomia

Harrizko ilarak **apurka-apurka** desagertu ziren, baina harantzago, ilunpeak baino ilunago, Dwimorbergen itzal mehatxaria makurtzen zen. Agustin Otsoa

Bere asmoa zen **apurka-apurka** erretiratuz joatea, zahartzaroa plazerez betetako bizimoduan emateko. Julen Gabiria

Gizonezkoen aurrean zirraraz eta emakumezkoekin laborriz, protagonista hor hasi duk, **apurka-apurka** eta halabeharrez, bere burua ezagutzen. Anjel Lertxundi

Txarto hasi zen elkarrizketa, baina onera egin zuen **apurka-apurka**, eta Txitxikov kemena berreskuratzen hasi zen. Jose Morales

Globalizazioa, beraz, dinamika luze batean kokatzen da, non espazio fisiko eta sozial oro, **apurka-apurka**, kapitalaren legearen mende ipintzen baita. Koro Navarro

Dena ahazten da lehenxeago edo geroxeago, hala ere, eta Josebaz ahaztu nintzen **apurka-apurka**, lehorreko eguneroko bizimoduan katigatua. Xabier Montoia

Hitz egiteko gaitasuna galtzen du **apurka-apurka** eriak. Berria - Gaiak

Armada frantziarra gainbehera geldiezin batean amildurik dago, etsipenak jota, eta etsipen hori gizarte osora hedatzen da **apurka-apurka**. Berria - Kultura

Gizonak sorbaldetatik helduta berarenganantz erakarri zuen emaztea **apurka-apurka**. Lopez de Arana

Metodo horiek, betiere arrisku zatiren bat izanagatik fetuarentzat, hobetuz joan dira **apurka-apurka**. Juan Garzia

Zure harremana, etxeko arazoekin, hutsaren hurrengo bihurtzen hasi da **apurka-apurka**. Lutxo Egia

Azkenik, **apurka-apurkako** ohitze edo etxekotze moduko bat ere gertatzen ari zela ematen zuen. Xabier Olarra

PPko Fernando Maurak bestelako kezka bat azaldu zuen: "Ezin dugu Naval bigarren mailako ontziola bihurtu, hori **apurka-apurkako** heriotza izango bailitzateke". Berria - Ekonomia

4 ***apurka-apurkako*** *izlag*

Azkenik, **apurka-apurkako** ohitze edo etxekotze moduko bat ere gertatzen ari zela ematen zuen. Xabier Olarra

PPko Fernando Maurak bestelako kezka bat azaldu zuen: "Ezin dugu Naval bigarren mailako ontziola bihurtu, hori **apurka-apurkako** heriotza izango bailitzateke". Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apur apurka (11); **apurka apurka ari** (4); **apurka apurka ari** (4); **apurka apurka aurrera** (3); **apurka apurka aurrera** (3); **apurka apurka bere** (3); **apurka apurka bere** (3); **apurka apurka dena** (3); **apurka apurka dena** (3); **apurka apurka joan** (5); **apurka apurka joan** (5); **apurka bada** (3); **apurka galtzen** (3); **apurka gora egin** (3); **apurka hobera egin** (3); **apurka ikasten** (3); **apurka indarra** (3); **apurka izan** (3); **apurka joan behar** (3); **apurka ohitzen** (3); **ari da apurka** (4); **baina apurka apurka** (17); **baina apurka apurka** (17); **da apurka apurka** (7); **da apurka apurka** (7); **dira apurka apurka** (5); **dira apurka apurka** (5); **doa apurka** (3); **du apurka** (3); **dute apurka** (3); **edo apurka** (3); **ere apurka** (3); **gero apurka apurka** (3); **gero apurka apurka** (3); **ginen apurka apurka** (4); **ginen apurka apurka** (4); **hasi nintzen apurka** (3); **hasi zen apurka** (3); **itzuli ginen apurka** (3); **joan zen apurka** (4); **joan ziren apurka** (3); **nintzen apurka apurka** (5); **nintzen apurka apurka** (5); **zen apurka apurka** (9); **zen apurka apurka** (9); **ziren apurka apurka** (6); **ziren apurka apurka** (6); **zuten apurka apurka** (3); **zuten apurka apurka** (3)

apurkako **1** *izlag* apurka gertatzen dena.

Ororen buru, baina, goizago ala beranduago exekutatua izatera edo espetxean hil arte **apurkako** heriotza bat jasatera kondenatuta dago Moussaoui. Berria - Mundua

Ororen buru, baina, goizago ala beranduago exekutatua izatera edo espetxean hil arte **apurkako** heriotza bat jasatera kondenatuta dago Moussaoui. Berria - Mundua

2 ***apurka-apurkako***

Azkenik, **apurka-apurkako** ohitze edo etxekotze moduko bat ere gertatzen ari zela ematen zuen. Xabier Olarra

PPko Fernando Maurak bestelako kezka bat azaldu zuen: "Ezin dugu Naval bigarren mailako ontziola bihurtu, hori **apurka-apurkako** heriotza izango bailitzateke". Berria - Ekonomia

---

apurkeria *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* huskeria.

Bidearen buruan igarriko diote, zuk legez, **apurkeria** baten atzetik ibili direla, eta atzean laga dutela zer edo zer dena, hots, osasuna, patxada eta etxeko zoriona. ETC-literatura, saiakera

Batetik hizkuntza ezpainetarik ezabatuko zitzaien bizidun-biktimak ginen, biktima negarroiak, eta bestetik lanjeraren hurbiltasun hotzaren estakuruz, **apurkerian** irauten genuen. ETC-literatura, saiakera

---

apurketa *iz* apurtzea, zati txiki-txikietan xehatzea, desegitea.

Zoriona ez dago gozamenean, desiran baizik, desira horri jartzen zaizkion hesien **apurketan**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta gizarte zapaltzaile eta santujale hari mingarrienak zitzaizkion arloetan gauzatzen du bere **apurketa**-lana: sexuaren eta erlijioaren arloetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

apurkin **1** *iz pl* papurrak, kondarrak.

Ez da hainbesterako ere, laster berreskuratzen dut-eta batetik bestera galdutako pisua, hainbat etxetan ematen dizkidaten bazkaritako **apurkinei** esker. Anjel Lertxundi

2 hondakinak.

Atentatua gertatu eta gero, lekuko batzuek zehaztu zuten xiitak zein ere sunitak eskuz esku zebiltzala salbakuntza lanetan, hots, etxe **apurkinen** azpian harrapatutakoen sorosteko ahaleginetan. Berria - Mundua

Jausitako bastizaren **apurkinen** pean harrapatuta geratzen diren lau pertsonen bizirik aurkitzeko aukerak gero eta txikiagoak direnez, hondamen honen balantzea larriagoa bihur daiteke. Berria - Mundua

Ehunka etxe suntsitzen ari dira oraintxe bertan; Espainiako irrati batek hots egin dit eta harritu dira zauritutakoen oinaze oihuak, Apache-en bonbardaketa hotsak, eta laguntza eskeko garrasiak entzutean; eta hainbat dira etxe **apurkinen** pean harrapatuta dauden gorpu zatiak (--...); alde guztietan banatutako gorputz zatien argazki batzuk hartu ditut. Berria - Mundua

Ur eta argindar hornikuntzarako azpiegiturak txikituak dira, dozenaka etxe erabat suntsituak edo andeatuak, eta auzuneko kaleak **apurkinez** gainezka. Berria - Mundua

---

apurkor *izond* erraz apurtzen dena, apurtzeko joera duena. ik **hondakor**.

Duela 11 urte tenislari izan nahi zuela esan zien neska koskorrarekin, haren edertasun **apurkorrarekin**, bidean izan dituzten zailtasunekin, gainditutako traba guztiekin. Berria - Kirola

Bera ere hasia zen nabaritzen alkohola odoletik hedatzen deneko sentsazioa, inguruko gauza guztiak **apurkorrago** egiten zituen eta nerbio-bukaeretako taupadak ia desagertzeko zorian uzten zizkion sentsazioa. Sonia Gonzalez

---

apurño *iz/izond* apurtxoa.

Alde batetik, inork ere ez duelako gustuz onartzen agian bere etxea ez duela behar lukeen bezain txukun eta garbi, beti bai baita norbait zure balizko gardentasuna urdekeria **apurño** batekin lizuntzen duena. Pello Salaburu

Gogo abaildurik adierazten dizut, ordea, ez dudala oraindik bizitzaren zentzua ezagutzen, eta horretaz uste dudan **apurñoa** ere ezin dudala laburtu paper-mutur baten edo elkarrizketa baten bidez. Anjel Lertxundi

Hala eta guztiz ere, ez zuen lortzen bihotzaren barrenean gordetzerik bidaiari orok, lur horia eta zeru urdinaren ostean, datilondoen berdetasuna begien aurrean azaltzean sentitzen zuen bizi-pozaren **apurño** bat ere. Xabier Aranburu

---

apuro ik **apuru**.

---

apurrarazi, apurraraz(i), apurrarazten du *ad* apurtzera behartu.

Jakin beharrak bake-prozesua **apurrarazi** du egunkari-saltzaileekin. Lutxo Egia

---

apurtezin *izond* ezin apurtuzkoa.

Gizonen eskuak narras zebiltzan, kristal **apurtezin** batean gora doazen zomorroen modura. Lopez de Arana

Nik amerikar armadako panazko praka berdeak neramatzan, eta iraunkorrak ziruditen gomazko zoladun zapata lokarridunak, gainetik larruzko azpantar **apurtezinak**, bere lokarriekin batera. Urtzi Urrutikoetxea

Hain zen gogorra, hain tematia, hain **apurtezina** arraioa, ezen sinetsia bainengoen betiko eutsiko ziola. Oskar Arana

Elkarrekin bizi, ordu berean jaiki, barberian eguna eman eta postura beretsuan oheratzen ziren anaien arteko konpenetrazioa, trenbideko burdin barra bikoitzena bezain zehatz eta **apurtezina** zirudiena, hautsi egin zen. Pako Aristi

Gotorleku **apurtezin** honetan gotorturik, eraso geniezaioke mehatxatzen gaituen krisiari. Joxe Azurmendi

Edozein kasutan, aipaturiko ziurtasun horrek ondorio garbiak ditu, esaterako, gure artean bizi omen dugun "gatazka" horren aurrean (exijitzen zaigun) zentzu bateko zein besteko erantzun sendo-**apurtezinak** ematerakoan. Iban Zaldua

Bide horri "ukapenaren ukapena" deitu dio, itxaropenik gabe "galdurik" baikaude -eta halere itxaropena fedetik soilik lor dezakegu, eta Jauna gutaz errukituko den eta Bere grazia erdietsiko dugun sinesmen **apurtezinetik**. Urtzi Urrutikoetxea

---

apurtu, apur(tu), apurtzen **1** da *ad* apurretan xehatu, desegin. ik **txikitu**; **puskatu**; **birrindu**.

Hau egingo duzue: haien aldareak bota, zutarri sakratuak **apurtu**, zutoin sakratuak moztu eta idoloak erre. Elizen arteko biblia

Ehun urte lehenago, ibaiko uholde batek ezponda handia **apurtu** zuen, eta ura makaldiraino iritsi eta han geratu zen, minutu batean berreskuratuz gizonek hiru mendetan lapurtu zioten lur puska. Koldo Biguri

Buztinezko eta brontzezko ontziak elkartzea bezala litzateke: elkar jotzen badute, **apurtu** egiten da lehena. Elizen arteko biblia

Honela dio Jaun ahalguztidunak: **Apurtu** egingo ditut herri hau eta hiri hau, buztinezko pitxerra bezala; **apurtu**, gehiago konpontzerik ez duen buztin-ontzia bezala. Elizen arteko biblia

Haren idolo guztiak **apurtu** egingo dituzte, oparitan irabaziak sutan erre, irudi guztiak xehatu. Elizen arteko biblia

Suntsitu zituen muinoetako kultu-lekuak, zutarri sakratuak hautsi, zutoin sakratuak bota, eta **apurtu** egin zuen Moisesek eginiko brontzezko sugea, ordurarte israeldarrek intsentsua erretzen baitzuten haren aurrean. Elizen arteko biblia

Gudaroste handia bidali behar zuen, Israelgo indarrak eta Jerusalemen gelditzen zirenak **apurtu** eta deuseztera, herrialde hartan beraien oroitzapena ere ezabatzeraino. Elizen arteko biblia

2 hautsi, puskatu.

Handik denbora batera, jarraitzen du tradizioak kontatzen, eustorma **apurtu** egin zen eta, apurtzean, dena suntsitu zuen, eta herrialdean bizi zirenak hain miseria gorrian utzi zituenez, tribu askok emigratu egin behar izan zuten. Iñaki Mendiguren

Maiteak danbatekoak eman zituen, mahai gaineko platerak jaurti zituen, lurrera bota zuen gatza, leiho baten kristala **apurtu** zuen. Anton Garikano

Botila ez zen **apurtu**, edalontzia bai ordea. Joxemari Iturralde

-Ispilua **apurtu** egin da! -kexatu zen aktoresa. Anton Garikano

Enbarkaziora itzultzean ikusiko duzue branka eta popa zabuka ari direla, soka batzuk **apurtu** direla, pausaldirik gabeko arrabolak eragindako tentsioagatik. Joseba Sarrionandia

Jostura bat **apurtu** zitzaion Hermioneren poltsari. Iñaki Mendiguren

Hesi hori **apurtu** nahi duena sakrilegoa da. Koldo Biguri

Leihoa **apurtu** behar izan zuen barrura itzultzeko. Joseba Sarrionandia

Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea **apurtu**. Elizen arteko biblia

· **Apurtu** ezin diren arauak daude. Koldo Biguri

- **apurtu** zuen isiltasuna, zirkinik egin gabe jarraitzen zuen Andoniri begira. Joxemari Urteaga

Gasteizen, aldiz, 1961ak **apurtu** zituen bertako markak: San Balendin bezperan, urte hartan, 21.8 harrapatu baitzituzten. Pello Zabala

3 (era burutua izenondo gisa)

Egun batean arrakala handi batek eragotziko dizue bidea, pitzadura saihesteko ibiltzen hasi eta bandera sobietiko **apurtu** bat topatuko duzue. Joseba Sarrionandia

Euria ari zuen eta boz **apurtu** eta desegoki hura karranpa modukoa zen. gustura jarraitu dugu guk Goienkaletik galtzadarantz euripean, aireplanoek antzina suntsitutako etxearen itzal amorfoen aldamenetik, inork egundo entzun gabeko kanta **apurtu** bat txistu eginez. Joseba Sarrionandia

4 ***jo eta apurtu***

Horiek frontoian segituko dute, **jo eta apurtu**, partidak irabazi eta partidak galdu, hogeigarren mendeko partida nagusia beste nonbaiten jokatzen ari den artean. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apurtu arte (5); **apurtu aurretik** (3); **apurtu bat** (8); **apurtu behar da** (3); **apurtu beharra** (4); **apurtu da** (6); **apurtu delako** (3); **apurtu dituzte** (6); **apurtu duen** (3); **apurtu dugu** (3); **apurtu dut** (3); **apurtu dute** (4); **apurtu duzu** (3); **apurtu egin zen** (14); **apurtu egin zuen** (3); **apurtu egingo** (12); **apurtu egiten da** (4); **apurtu eta gero** (3); **apurtu ez** (4); **apurtu gabe** (3); **apurtu gura** (3); **apurtu izan** (3); **apurtu izana** (4); **apurtu nahi izan** (4); **apurtu nahi izatea** (3); **apurtu nahian** (4); **apurtu zen** (17); **apurtu zenean** (5); **apurtu zion** (4); **apurtu ziren** (3); **apurtu zituen** (13); **apurtu zituzten** (5); **apurtu zitzaion** (5); **apurtu zuela** (4); **apurtu zuten** (9); **ardatza apurtu** (3); **asko apurtu** (3); **bakarrik apurtu** (3); **batasuna apurtu** (3); **belauna apurtu** (3); **berak apurtu zuen** (3); **berehala apurtu** (3); **burua apurtu** (3); **dinamika apurtu** (3); **diskrezioa apurtu** (3); **edo kondoia apurtu** (3); **erabat apurtu zuen** (3); **ere apurtu** (6); **espetxeak apurtu** (3); **ez zen apurtu** (3); **guztia apurtu** (3); **guztiak apurtu ditu** (3); **harremana apurtu** (3); **harresiak apurtu** (3); **hau apurtu** (3); **hodi bat apurtu** (3); **hori apurtu** (12); **hura apurtu** (4); **isiltasuna apurtu** (4); **ispilua apurtu** (4); **izotza apurtu** (3); **kateak apurtu** (3); **kristala apurtu** (4); **leihoa apurtu** (3); **lokarriak apurtu** (3); **marka guztiak apurtu** (6); **muga apurtu** (3); **mugak apurtu** (4); **oreka apurtu** (5); **partida apurtu zuen** (4); **zatitan apurtu** (4)

apurtua zuen (3)

kristal apurtuak (3)

apurtuko ditu (4); **apurtuko dituzte** (4); **apurtuko duen** (3); **burua apurtuko** (3); **guztiak apurtuko** (3); **hori apurtuko** (4)

apurtuta dauka (3); **apurtuta daukala** (3); **apurtuta ikusten** (3); **apurtuta zegoen** (3); **guztiak apurtuta** (3)

isiltasuna apurtuz (3)

apurtzea da (5); **apurtzea lortu** (6); **apurtzea lortzen** (4); **batasuna apurtzea** (3); **hori apurtzea** (5)

akordioa apurtzeko (3); **apurtzeko arriskua** (3); **apurtzeko arriskurik** (4); **apurtzeko aukera** (4); **apurtzeko zorian** (4); **batasuna apurtzeko** (3); **erritmoa apurtzeko** (4); **estatistikak apurtzeko daude** (4); **estatistikak apurtzeko daudela** (3); **ez apurtzeko** (5); **hori apurtzeko** (11); **hura apurtzeko** (3); **partida apurtzeko** (5)

apurtzen ari da (6); **apurtzen da** (5); **apurtzen dela** (4); **apurtzen denean** (5); **apurtzen diren** (3); **apurtzen ditu** (7); **apurtzen dituzte** (6); **apurtzen du** (15); **apurtzen duen** (5); **apurtzen duten** (4); **apurtzen ez bada** (3); **apurtzen hasi** (4); **apurtzen saiatu** (6); **apurtzen ziren** (4); **apurtzen zuen** (5); **apurtzen zuten** (4); **burua apurtzen** (4); **erritmoa apurtzen** (3); **gauzak apurtzen** (3); **guztiak apurtzen ari** (5); **hori apurtzen** (3); **horrekin apurtzen** (3); **kontra apurtzen** (4); **marka guztiak apurtzen** (4); **partida apurtzen** (3); **pixka bat apurtzen** (3)

---

apurtune *iz* apurketaren gunea.

Eta haien itxura, gainera, ez zen ohikoa; haiek ez ziren hotzaren eragin erregularrez sortzen diren izotz puskak, ice-fielden batetik erauzitako zati hutsak baizik, **apurtuneak** garbi-garbi ebakiak zituztenak, koska larririk gabe. Karlos Zabala

---

apurtxo **1** iz adkor apur xumea.

Horretan dago, ordea, koska: nola atera besteekiko erlazioan beharrezkoa dena; eta nola adierazi **apurtxo** horren bidez barnean geratzen den bizitzaren gainerako guztia! Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Baina zuk -eta deseroso begiratu zion mutikoaren biluztasunari- ez duzu hotz **apurtxo** bat ere? Julen Gabiria

Inbidia **apurtxo** batez begiratzen niela esango nuke. neska hura erakargarri egiten zitzaion, kanpoko edertasunagatik eta bereziki izaeran erakusten zuen barne segurtasunagatik, zerbait adierazterakoan ironia **apurtxo** batez gaineratzen zitzaion lasaitasunagatik. Xabier Mendiguren Elizegi

3 ***apurtxo bat*** *adkor* pixka bat.

Traidore eta faltsu fama dugu bai, **apurtxo** bat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Tira, **apurtxo bat** irakurri dot -erantzun zion Hagridek, burkoaren azpitik liburu handi bat ateraz-. Iñaki Mendiguren

Apurtxo bat han egon nintzen tente-potente. Janbattitt Dirassar

Esan dit **apurtxo bat** badakiela dueluan, eta hasi baino lehen erakustaldi laburtxo bat egiten lagunduko didala onartu du jator-jator. Iñaki Mendiguren

Lasaien nengoenean, zaintza **apurtxo** bat jaitsia nuenean gertatzen zitzaidan hura. Joxemari Iturralde

Adierazpen horren hastapenak **apurtxo bat** -bizpahiru puntu- harrotzen saiatuko naiz ondorengo lerroetan, aurrerago esanak jorratuz. Jenaro Garate

Era horretan hasi zen bere gorputza **apurtxo bat** gozatzen. Askoren artean

Itxaron **apurtxo bat**! Iñaki Mendiguren

Jondone Marti, etxetik parti, lanerako ziur, azaroak zeregin gehiegi baitizu berekin, aroak **apurtxo bat** lagunduz gero. Pello Zabala

Harryk burua mugitu zuen **apurtxo bat**, urrutiko ateak argi eta garbi ikusteko. Iñaki Mendiguren

Beharbada, "nik ere maite zaitut **apurtxo bat**" erantzungo zukeen, emakumeek sarritan erabili ohi duten formula baita gurekiko ez direla erabat ezaxol sentitzen esateko. Ramon Saizarbitoria

Hantxe egoten ziren, edalontzi luzea eskuan, euren aldaka ortopedikoei **apurtxo bat** eraginez, lepoa luzatuta batera eta bestera begira, zerbait interesgarriaren bila. Jon Arretxe

Fedeak eta hunkidurak hartaratua almuedanoa belauniko jausi zen, baina gauza bakoitza bere garaian, Ala ez da asaldatuko zor zaizkion eskerronak **apurtxo bat** geroratzen badira, esker emateak baino lehen pozak hedatu behar du. Jon Alonso

Gizonaren besoa **apurtxo bat** gehiago hurbildu zen. Jon Alonso

-Ea, egin alde batera **apurtxo bat**, mugitu! Iñaki Mendiguren

Ezin da aldatu, gehien-gehienez **apurtxo bat** hobetu. Xabier Montoia

Urrundu ipurdia beste **apurtxo bat**, astindu bakoitzean nire zakilburuak zure ipurtzuloa uki dezan... Bai, horrelaxe! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Itsasoan **apurtxo bat** barneratu ostean, han geratu zen olatuen artean geldi, santuak predikatu zuen bitartean. Agian gehiegi saiatzen zela natural, zen moduan, batere engainu edo estalkirik gabe azaltzen, hori bai nabari zitzaiola **apurtxo bat**, baina ez besterik. Askoren artean

-Uste dut min **apurtxo bat** egingo dizula -abisatu zion. Julen Gabiria

Asko arduratu arren, zuetako nork luza lezake bizitza **apurtxo bat** ere?

Asko arduratu arren, zuetako nork luza lezake bizitza **apurtxo** bat ere?

Gureak ez du egin, beraz, oraindik apur bat gogoko banau; apur bat baino ez bada ere, **apurtxo bat** besterik. Mirentxu Larrañaga

Garai hartan ezagunak ziren pozoi guztietatik **apurtxo bat** hartzen hasi zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ahari-gibela egonez gero, ahari-gibela ere galdegiten zuen, eta bakoitzetik **apurtxo bat** besterik ez zuen jaten, dastatzeko doia. Jose Morales

Euren bunkerretan sartzen direnean soilik sentitzen dira **apurtxo bat** seguruago. Berria - Mundua

Apurtxo bat baino ez. Itziar Otegi

Agian kezkatuta dago, apur bat, **apurtxo bat**, ni zain edukiarazteagatik. Mirentxu Larrañaga

Zortzi hizkuntzatan mintzatzen da, baita gazteleraz **apurtxo bat** ere. Jon Arretxe

Aste berriarekin, petrolioaren prezioak agur esan dio goranzko joerari, eta aspaldiko partez, **apurtxo bat** jaitsi da. Berria - Ekonomia

4 (dagokion izen baten eskuinean)

Nik banekinan frantses **apurtxo bat**, ezer gutxi azken batean, baina gutxi hori erabiltzen saiatzen nindunan. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina zuk -eta deseroso begiratu zion mutikoaren biluztasunari- ez duzu hotz **apurtxo bat** ere? Julen Gabiria

-Musika **apurtxo batek** on egingo digu -esan zien Rekexok aparaturaino hurbilduz. Joxemari Iturralde

Anselmok baino ingeles **apurtxo bat** gehiago jakiteagatik izendatu zuen don Evaristok operazioburu. Joxemari Iturralde

Hala ere, oraindik geratu behar zaizu material **apurtxo** bat, bestelako garraztasuna daukan bestelako zaporea, zure pituitario eta papilak lotarazteko balioko dizuna. Sonia Gonzalez

Nik ez neuzkan gauzak zeuzkatenekin hitz egitean (oporretako etxe bat ez dakit non, neskamea etxeko lanetarako, zernahi), inbidia **apurtxo batez** begiratzen niela esango nuke. Xabier Mendiguren Elizegi

-Baina zu, Migel, kapare zara edo? -galdetu nion ironia **apurtxo batekin**. Patxi Ezkiaga

-Haize leun **apurtxo bat** izango duzue goialde horretan... Paddy Rekalde

5 ***apurtxo batez*** pixka batean.

Abadea zalditik arin-arin jaitsi eta **apurtxo batean** bere arimaren salbamenari zegozkion gauzez jardun zuen harekin. Askoren artean

6 ***apurtxo batez*** pixka batez.

-Itxaron ezazu **apurtxo batez**, Morales jauna -esaten zion beti egongelan edukitzen zuen andereño txotxolo hark-. Joxemari Iturralde

Eta **apurtxo batez** eskuin aldera jo dut, ihesi; nolazpait Dorreko esparrura hurbilduz. Txillardegi

Denek albo batera egin zuten eta ikusten utzi zioten; eta **apurtxo batez** begira egon ostean, ez zuen gehiago jakin zer egin. Julen Gabiria

---

apurtzaile **1** *izond* apurtzen duena.

Lege-betetzaile, ez **apurtzaile**, agertzen zaigu Jauna. Patxi Altuna

Sade transgresorea izan zen, **apurtzailea**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ni ez naiz sekula **apurtzailea** izan. Ana Urkiza

Filosofia apaingelan testu libertinoa da; hots, **apurtzailea** eta probokatzailea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Abangoardiako mugimendu **apurtzaile** horrek izan zuen sortzeko erabateko askatasunak animazioan izan duen eragina eta animazioak ametsak errealitate bihurtzeko duen gaitasuna pantailan islaturik geratu dira. Berria - Kultura

Bi egitasmo **apurtzaileek** buruhauste handiak eman ditzakete. Berria - Euskal Herria

Sei proposamen berri **apurtzaile** horietako baten sormenaren berariazko lana. Iñaki Segurola

Liburuaren doinu lizun eta **apurtzaileaz** jabetuta, Donatienek ez zuen sinatu bere obra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Liburu-denda txiki bat zabaltzearen erabaki absurdoa, berriz, arrazoi sentimentalengatik hartu zuela lehenik eta behin, bera bizi izandako txalet hura grua **apurtzaileei** entregatu nahi ezean. Bernardo Atxaga

Haizearen indar suminduak itsasoa astintzen eta ontzi eskergak iraultzen eta hodeiak sakabanatzen ditu; halaber, zirimol oldartsuan korrituz, tantai handiak zelaietan eraisten ditu eta mendi tontorrak bere putz oihan **apurtzailez** astintzen. Xabier Amuriza

MEM 2004 nazioarteko abangoardiako arte multidiziplinarraren jaialdiak "gaur egungo proposamen **apurtzaileenak**" ekarriko ditu gaurtik abenduaren 18a arte Bilbora. Berria - Kultura

Leopoldo Barreda PPko parlamentariak adierazi zuen bere taldeak ez duela uste "planaren norabide **apurtzailea** zuzenduko denik". Berria - Euskal Herria

2 (izen gisa)

Hortxe dira haatik Saizarbitoriarentzat abertzaletasunaren **apurtzailerik** eraginkorrenak direnak, zenbait abertzale zoro. Markos Zapiain

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sade beste muturra zen, subertsiboa, matxinoa, disidentea, arau-**apurtzailea**, libertinoa, probokatzailea, bihurria, ateoa, profanatzailea, biraolaria, sakrilegoa, lotsagabea, madarikatua. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gainontzeko guztiak, langileak bezala burgesak ere, pobreturik irten dira gerratik, kontakizun batean greba-**apurtzaile** moduan agertzen den irakasle gizajoak erakusten duen bezala. Koldo Biguri

Hark gehiago ekarri zion: irudi berriak eta oroitzapen zahar, bihotz-**apurtzaileak**. Anton Garikano

Ipar-mendebaldeko lurraldeetan eta Yukonen lan egin zuen mediku orokor gisa, eta, halaber, Artikoan dabiltzan izotz-**apurtzaileetan**. Xabier Olarra

4 ***izotz-apurtzaile*** *iz* itsasontzi izotz-hauslea. ik beherago **13.**

Ipar-mendebaldeko lurraldeetan eta Yukonen lan egin zuen mediku orokor gisa, eta, halaber, Artikoan dabiltzan **izotz**-apurtzaileetan. Xabier Olarra

---

apurtze *iz* haustea.

Apurtze haren berri ez ematea ez zen zehazki gezurretan ibiltzea izan, eta gainera nik ez neukan zertan zuri kontatu norekin nenbilen edo ez nenbilen, baina datu hori badakit interesatu egingo zitzaizuna, eta isildu egin nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Harbourrek zioenez, "borroka hauetan, zibilen eta gudukarien gerizapenerako gerra arauen hausteak gertatu dira eta nazioarteko giza eskubide araudien **apurtze** hauetaz ikerketak egin beharko dira, erantzuleak epaitzeko gisan". Berria - Mundua

Belauna-**apurtze** hori gertaldi bat da, hain zuzen, nire garrasiak kausatu dituen gertaldia. Askoren artean

---

apuru *(ETCn **72** agerraldi; orobat **apuro** ETCn **21** agerraldi) iz* estualdia, larridura.

Lur-zotala hondoagotik hartzean, azaletik lur mamialdera, zizarea lasai, korapiloz bilduta bazegoen, ez **apurorik**: Zizare korapillatuak legortea datorrela esan nahi du. Pello Zabala

Bere lehen bertsoa: "Nere laguna harrapatuta/jaunak hau da **apurua**, poliziekin beteta dago/aspaldian ingurua, egia da bai gure geroa/ ez dala hain segurua, horren aurrean zeinek altxatu/bildurrik gabe burua, epaile batzun eskutan dago/gu euskaldunon mundua, ta aldrebestu gura digute/tamalez bizimodua, beldurra daukat noiz iritsiko/ote dan nire ordua". Berria - Kultura

---

apustu *(orobat **apostu** g.er.)* **1** *iz* alde bi edo gehiagoren arteko hitzarmena, asmatzen duenak edo arrazoia duenak aldez aurretik erabakitako kopuru bat bereganatzean datzana; biren arteko lehia, postura bat bitarteko dela. ik **desafio**; **trabes**[1], **pario**, **postura**[2]; **dema**.

Nekerik gabe etorri zaizkit burura hark esandakoak; hango erronka eta harako **apustua**; bateko gerra-kontuak eta besteko erromeriak; senideen ibilerak eta gurasoen bizimodua. Xabier Etxabe

Behin Meagako aldapan **apustua** irabazi zion beste bati. Xabier Etxabe

Auzoko Sabina zela soinua jotzen, eta Amak irabazi zuela **apustua**. Xabier Etxabe

Apustuak, jokatzekotan, irabazteko egin behar baitira. Xabier Etxabe

Beoteko zelaietan, Amaren eta Artzaiaren arteko **apustuaren** testigu izan ziren haietan, hileta doinua nagusitzen ari zitzaion txistu hotsari. Xabier Etxabe

Frontoian, hantxe ari dira lanean Julian Ibarluzea, pilotari, eta anaia nagusia, Patxi Ibarluzea, **apustuetan** artekari. Edorta Jimenez

Apusturako fin preparatzen zen. Xabier Etxabe

Denek zuten familian **apusturako** grina. Xabier Etxabe

Faboritoa hurbilekoa bazen, prestaketan lagunduko zioten; **apusturako** dirua bota ere bai. Xabier Etxabe

Orain dagoen trafikoa ikusita, ezin **apusturik** jokatu biderik itxi gabe. Xabier Etxabe

Auzoko Sabina zela soinua jotzen, eta Amak irabazi zuela **apustua**. Xabier Etxabe

Baina handik hamar minututara "Artzaya"k **apustua** galdu. Xabier Etxabe

2 (izenondoekin)

Baina **apusturik** ikusgarriena, nola ez, Amak eta Artzaiak egin zutena izan zen. Xabier Etxabe

Amerikar administrazioak segur izan nahi zuen ez zela **apustu** klandestinorik eginen! Ramuntxo Etxeberri

Bertsolaritzaren mugimenduak azken bi hamarkada hauetan belaunaldi gazteenganako transmisioaren aldeko **apustu** nabarmena egin du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Apustu xelebre bat izan zen 1924. urteko otsailaren 17an, arratsaldez, "Beote" baserriaren inguruan: "Beote"ko "Bitxori" zenaren eta "Artzaya" esaten zitzaionaren artean. Xabier Etxabe

3 (hitz elkartuetan)

Kantuaren aipamena frontoian Patxi Ibarluzeak duen **apustu**-artekari lanari buruz da. Edorta Jimenez

-Eta ze **apustu** klase egin zitean ba Amak eta Artzaiak? Xabier Etxabe

Andres Egañak **apustu** giroko komeriak kontatzen dituen orria dut aurrean: [...]. Xabier Etxabe

· Mariak berak ere, bizikleta-**apustua** egin omen zion lagun bati Aiako aldapan gora. Xabier Etxabe

Beoten dagoen intxaur gainera igota ikusi zuela dantza-**apustua** eta Amak irabazi zuela. Xabier Etxabe

Pozik noa etxera, pozik baina pentsakor, Amak eta Artzaiak egindako dantza-**apustua** bueltaka dabilkidala. Xabier Etxabe

4 ***aizkora apustu*** *(orobat **aizkolapustu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **aizkolapustu** agertzen da)*

Bihar jokatuko da martxoaren 12an jokatu beharreko **aizkora apustua**, Tolosako zezen-plazan (12: 00). Berria - Kirola

Zialtzetak gogoan dauka Jazinto Rivasek atera zuen kantu bat Luxia-Naparra **aizkora apustua** zela-eta: [...]. Koldo Izagirre

Korrika saioak, **aizkora apustuak**, sentitutakoak eta sentiarazitakoak, ezkontzakoak eta omenaldikoak. Berria - Kultura

Heldu den igandean jokatu behar zuen Joxemari Olasagastik Unai Otaño eta Jexuxmari Lasaren aurkako **aizkora apustua**, baina apirilaren 9ra atzeratu dute. Berria - Kirola

Berriz, objetiboki, leitu duzue inoiz gure Herriaren izena **aizkolapustu** edo ihauteritako ez bada? Pablo Sastre

5 ***apustu egin***

Helbururik gorenaren alde **apustu egin**, garaiezina dirudien hori xaxatu, edo bigarren postua ziurtatu, segurutik jo. Berria - Kirola

Apusturen bat **egiteko** pronto inork erronka botaz gero. Xabier Etxabe

- **Apustu egiten** diat baietz erbi-zakurra zaldia baino lasterragoa izan. Koro Navarro

- **Apustu eginen** nuke droga dela. Iñaki Zabaleta

Apustu egingo nuke eroarena eginez hartu duzula min. Juan Kruz Igerabide

Eurimako: hik eta biok **apustu egingo** bagenu udan, egunak luzeak direnean, belarra igitaiaz mozten, arratsa arte batere jan gabe; edo behiei aidaka ibili beharra balego goldean..., ikusiko huke nor den gehiago. Juan Kruz Igerabide

Gizarteak gu onartzen gaituela, bai, baina era berean **apustu egiten** duela, "utziek, utziek marikoiak izaten, ea noiz hausten diren", ulertzen duk? Pako Aristi

Pilotariek zenbakiak daramazkite bizkarrean eta ikusleek zenbaki bat edo beste baten garaipenaren gainean **apustu egiten** dute. Ramuntxo Etxeberri

Denek **apustu egiten** zuten: joango zen ala ez zen joango Bagdadera? Juan Kruz Igerabide

Batari zein besteari **apustu egiten** aritzen zen horietakoa genuen, ardoa lagun zuenean batik bat. Xabier Etxabe

Horrekin batera, bi **apustu egin** zituen Peter Caruana lehen ministroak Legebiltzarrean: Londresekiko harremanak "modernizatzea" eta konstituzioa berritzea. Berria - Mundua

Egingo al huke **apustu**, baietz handienak irabazi? Koro Navarro

Hipotesiak egiten hasita, baietz itzulgai honetan horrelako aipu gehiago egon, **apustu egingo** nikek. Iñaki Iñurrieta

Sarasuak -euskararen munduan gertatzen ari dena paradigmatzat hartuta- bestelako kultura politikoaren aldeko **apustu** garbia **egin** zuen, eta horretarako behar den zorua erreklamatzen zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Baina halan da etxekaltea gurea ze, Urquizaren aldeko **apustu** garbia **egiten** bada ere, Ibarretxe dakarten denek; Egibar eta Atutxa ia denek, baina Múgica eta Iturgaiz lerro batzuk beherago. Iñigo Aranbarri

Kontua da **apustu** komertziala **egina** dutenek sorkuntza horri ez diotela biderik ematen. Berria - Harian

Apustu zehatza **egin** duzue: erdal komunitatearengana iritsi nahi duzue. Berria - Harian

Arrisku bital gogorrak bere gain hartuko balitu bezala; **apustu** handiak **egingo** balitu bezala, sarerik gabeko jauzi mortalak. Iñaki Iñurrieta

Kontua da Iñigo Landaluzek **apustu** galanta **egin** zuela atzo. Berria - Kirola

Ez zaio ulergarri inork kultur produktu baten aldeko **apustu egitea**, jakinik produktu horrek nekez izango duela arrakastarik. Anjel Lertxundi

Okerka zetozen umeki zailak bakarrik nituen nik gogoko, nire adimenari **apustu egiten** ziotenak, eta bereziki, gizaki berriaren hil edo biziko borroka nire esku geratzen ziren uneak nituen maiteen. Hasier Etxeberria

Horrekin batera, bi **apustu egin** zituen Peter Caruana lehen ministroak Legebiltzarrean: Londresekiko harremanak "modernizatzea" eta konstituzioa berritzea. Berria - Mundua

6 *apustua egin*

Ildo horretatik, oso garrantzitsua da mundu mailako III. Gizarte Foroan (MFG) "informazioaren ekologia" deitu zaien deskontaminazio prozesuen aldeko **apustua egitea**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ahal zuen guztietan umeak eskola-sisteman edukitzearen aldeko **apustua egiten** zuen, eta ez zen - kasurik larrienetarako izan ezik - erakunde berezien oso lagun. Iban Zaldua

ETBk, bi kateetan, atxilo hartutako gizonaren aurpegia desitxuratzearen aldeko **apustua egin** zuen, ez ordea ikusi ahal izan nituen Espainiako gainerako kateek. Iñigo Aranbarri

Apustua egin eta bete-betean asmatu diat. Xabier Paya

Rollebon jaunak, sinesgabea izaki, **apustua egin** zuen Moulinseko apaizarekin ezetz bi ordu baino gehiago eman eria sentimen kristauetara bil zedin. Monika Etxebarria

Nik uste nuen ezin nuela hainbeste balio, norbaitek nire aldeko **apustua egiteko** bezainbeste, baina hala gertatu da, eta ez dut damurik, ezta izpirik ere, Yolorengan konfiatu izanagatik". Pako Aristi

Horren aldeko **apustua egin** dut. Berria - Kultura

Izan ere, batetik, Navalen aldeko **apustua egiten** ari dela dio. Berria - Ekonomia

Nocioni, Macijauskas, Scola zein gainontzeko jokalariek partidaren presioari ondo aurre egiten jakin behar dute, ardurak banatuz eta taldearen aldeko **apustua eginez**. Berria - Kirola

Etxetik kanpoko partidetan abiadura baliatzea du gustuko zuri-gorrien teknikariak, baina badirudi oraingoan tuterarraren aldeko **apustua egingo** duela. Berria - Kirola

Kontratuaz denaz bezainbatean, erreditu tasa zentzudunaren aldeko **apustua egiten** du atariko hitzaldiak, lukurreriaren gehiegikeriak ostendu nahian. Andres Urrutia

Euskal prentsaren egitura duintzeko **apustua eginda** zegoen, prentsa ez-duina egiteko ere arazoak geneuzkan garai hartan. Lander Garro

"Bada beste bizimodu baten aldeko **apustua egin** duen jendea; bada Pirinioetan bizi nahi duen jendea, eta jende hori beti aurrean aurkituko du Nafarroako Gobernuak. Edurne Elizondo

7 *apustua zerratu*

Apustua zerratu aurretik taberna batean elkarrengana bildu eta bi aldeak han hortaz ziren xehetasun eta baldintza guztiak eztabaidatzen, batean amore eta bestean gogor eskatuz. Berria - Kirola

8 *idi apustu* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Bestalde, Laukizen hilaren 4an jokatzekoa zen **idi-apustua**, berriz, martxoaren 11an jokatuko da. ETC-prentsa

Kalkulatzeko neukan modu bakarra **idi-apustuetako** harriekin konparatzea zen. ETC-literatura, saiakera

Idi pare izugarri indartsu eta orekatua prestatzen ari zelarik **idi-apustuetarako**, belar beroa janda puztu eta lehertu egin zitzaizkion bien ala biak. ETC-literatura, saiakera

9 *lokotx apustu* lokotxekin jokatzen den jokoa.

Bertan, ezinduek gizon probetan, **lokotx** apustuan edo trontzan aritzeko gai direla erakutsiko dute. Berria - Kirola

10 *sega apustu*

Izan ere, Mitxelena eta Urki **sega apustua** hitzartzekotan dira. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde apustu egin (9); **alde apustu egitea** (6); **alde apustu egiten** (6); **aldeko apustu argia** (8); **aldeko apustu garbia** (20); **aldeko apustu sendoa** (7); **apustu argia egin** (3); **apustu arriskutsua egin** (4); **apustu ausarta** (3); **apustu bat egin** (8); **apustu bat izan** (3); **apustu batean** (3); **apustu baten** (5); **apustu eginen nuke** (4); **apustu egingo nikek** (3); **apustu egingo niken** (5); **apustu egingo nuke** (35); **apustu egiteko** (5); **apustu egiten diat** (7); **apustu egiten duela** (3); **apustu estrategiko** (3); **apustu estrategikoa** (8); **apustu garbi** (3); **apustu garbia egin** (6); **apustu garbia egina** (3); **apustu garbia egiteko** (3); **apustu garbia egiten** (7); **apustu garrantzitsua da** (4); **apustu gogorra egin** (3); **apustu handia egin** (4); **apustu hau** (6); **apustu hori** (9); **apustu horren** (8); **apustu horri** (3); **apustu hura** (3); **apustu kontua** (3); **apustu nagusia** (3); **apustu pertsonala** (3); **apustu politiko** (3); **apustu politikoa** (5); **apustu sendoa egin** (7); **apustu sendoa egiten** (3); **apustu serioa egin** (3); **apustu zaleak** (3); **apustu zehatz** (3); **baina apustu** (13); **baten alde apustu** (3); **baten aldeko apustu** (4); **beste apustu bat** (3); **da apustu** (6); **demokratikoen aldeko apustu** (5); **duela apustu** (4); **duen apustu** (3); **dugu apustu** (5); **dut apustu** (4); **dute apustu** (3); **duten apustu** (3); **egin apustu** (5); **egin du apustu** (4); **egin zuen apustu** (6); **egingo nuke apustu** (3); **eginiko apustu** (3); **egiten zuten apustu** (3); **nik apustu** (3); **zela apustu** (3); **zen apustu** (4)

aizkora apustua (3); **ak apustua** (3); **alde apustua egin** (3); **alde egindako apustua** (8); **aldeko apustua berretsi** (12); **aldeko apustua berretsiko** (4); **aldeko apustua da** (5); **aldeko apustua egin** (181); **aldeko apustua egina** (3); **aldeko apustua eginez** (5); **aldeko apustua egingo** (22); **aldeko apustua egitea** (19); **aldeko apustua egiteko** (19); **aldeko apustua egiten** (58); **aldeko apustua ere** (3); **aldeko apustua ez** (5)

apustua berretsi du (4); **apustua berretsi zuen** (6); **apustua berretsi zuten** (5); **apustua berretsiko du** (4); **apustua dela** (5); **apustua egin baitu** (3); **apustua egin behar** (16); **apustua egin beharko** (4); **apustua egin dezaten** (3); **apustua egin du** (44); **apustua egin duela** (8); **apustua egin dugu** (7); **apustua egin dute** (16); **apustua egin duten** (3); **apustua egin genuen** (4); **apustua egin nahi** (14); **apustua egin zuen** (49); **apustua egin zuten** (8); **apustua egina duela** (3); **apustua egina zegoen** (3); **apustua egingo du** (8); **apustua egingo duela** (7); **apustua egingo dute** (3); **apustua egiten ari** (6); **apustua egiten badu** (3); **apustua egiten da** (4); **apustua egiten du** (11); **apustua egiten duela** (7); **apustua egiten dugu** (4); **apustua egiten dut** (3); **apustua egiten dute** (5); **apustua egiten duten** (5); **apustua galdu** (6); **apustua goraipatu** (3); **apustua indartu du** (3); **apustua irabazi** (6); **apustua irabaztea** (3); **apustua izan** (5); **apustua jokatu zuten** (3); **apustua jokatuko du** (3); **apustua jokatuko dute** (7); **apustua jokatzeko** (6); **apustua ondo atera** (3); **apustua prestatzen** (3); **apustua zela** (4); **apustua zen** (4)

arrisku handiko apustua (4); **artearen aldeko apustua** (5); **arteko apustua** (7); **baina apustua** (4); **bakearen aldeko apustua** (8); **baten aldeko apustua** (32); **batzuen aldeko apustua** (3); **bere aldeko apustua** (6); **bere apustua** (4); **beren apustua** (3); **bultzatzeko apustua** (4); **dantza apustua** (4); **demokratikoen aldeko apustua** (5); **dute apustua** (5); **egin duten apustua** (3); **egin zuen apustua** (3); **eginiko apustua** (6); **egiteko apustua egin** (4); **egiten duen apustua** (3); **egiten duten apustua** (3); **elkarrizketaren aldeko apustua** (13); **ereduaren aldeko apustua** (4); **etorkizunerako apustua** (4); **euroko apustua jokatuko** (3); **europaren aldeko apustua** (3); **gazteen aldeko apustua** (9); **gure apustua** (9); **handiko apustua saritu** (3); **haren aldeko apustua** (3); **harrobiaren aldeko apustua** (13); **hartzeko apustua** (3); **horren aldeko apustua** (10); **jarraitzeko apustua berretsi** (3); **jokalarien aldeko apustua** (3); **kalitatearen aldeko apustua** (3); **kirol apustua** (3); **mantentzearen aldeko apustua** (3); **nire aldeko apustua** (3); **nire apustua** (5); **nuklearraren aldeko apustua** (3); **olasagastiren aurkako apustua** (3); **politikaren aldeko apustua** (3); **politikoen aldeko apustua** (7); **sistemaren aldeko apustua** (3); **soilen aldeko apustua** (3)

aldeko apustuak (10); **apustuak bertan behera** (3); **apustuak egin** (5); **apustuak egiteko** (3); **apustuak egiten zituzten** (3); **apustuak emaitza** (4); **apustuak ere** (3); **apustuak ez** (3); **apustuak nabarmen** (3); **bizikleta apustuak** (3); **egindako apustuak** (5)

aldeko apustuan (3)

aldeko apustuaren (4); **apustuaren berri** (4); **egindako apustuaren** (3)

aldeko apustuari eusten (4); **apustuari eutsiko** (3)

apustuetako dirua doblean (4); **apustuetako dirua nabari** (3); **apustuetako dirua nabarmen** (4); **apustuetako dirua parean** (4); **apustuetako dirua urdinen** (4)

apusturen bat (3)

apusturik egin nahi (3); **apusturik ez** (4)

---

apustugile *(ETCn **6** agerraldi; orobat **apustu egile** ETCn **11** agerraldi)* *iz* apustuak egiten dituen pertsona.

Betiere, apusturik gabe egiten badira; izan ere, dirua jokatzeak "bere giro propioa" sortzen duela uste du Egigurenek, eta beraiek erakarri nahi dituzten ikusleak ez datoz bat **apustugilearen** prototipoarekin. Berria - Kirola

Apustugileak berriz, gizajo jendea ziren, gutxik zuten esperientzia hura errepikatzeko itxura; beren bizitzarekin zer egin jakin ez, eta emozio berriak agindu zaizkien ludopata aspertuak besterik ez ziren gehienak. Harkaitz Cano

---

apustuka *(corpusean **apostuka** soilik)* *adlag*

Eta huna nola erregetua den: Egun batez xori eta hegaztin guziak hasi omen ziren **apostuka** zoin gorago altxa airetan; gorena altxatuko zena guzien errege izanen zela. Patziku Perurena

---

apustulari *(orobat **apostulari** g.er.)* *iz* apustu egiten duen pertsona.

Aditu eta **apostularientzat** Rene Muskarditz eta Thierry Etxeto faborito ziren arren, Panpi Idiartek eta Paxkal Ezkurrak hobeto jokatu zuten. Berria - Kirola

---

apustuleku *iz* apustu egiten den lekua.

Laster izenpetua izan behar litzatekeen akordioaren arabera, "Paggor" Rek Jai Alaiko langileak formatu behar lituzke eta "Belle"-ek 300 **apustuleku** antolatu Filipina guzietan. Ramuntxo Etxeberri

---

apustuzale *iz* apustuen zale dena.

Apustuzalea da Ernest, hala frontoian nola oilartegietan. Edorta Jimenez

Apustuzalea banintz, esango nuke ez dugula Honey berriro ikusiko. Oskar Arana

Konpetentzia oso handia baitago, Floridan kirol profesional ugari hedatu izanaz gain, egun **apustuzaleak** edozer gauzatara joka dezakeelako, txakurretan, pokerrean... Berria - Kirola

Aurreko asteko partidan aurkariek baino askoz gehiago jokatu zuten, eta **apustuzaleek** ez dute ahaztu. Berria - Kirola

Labriten Barriola zen faboritoa: **apustuzaleek** konfiantza eman zioten (100-60ri), eta Leiza oztopo zail bat baino gehiago ez zela izango zirudien. Berria - Kirola

Dirua, **apustuzaleen** dirua, harrika; ezohiko isiltasuna harmailetan. Berria - Kirola

Apustuzale amorratua zen, eta jenio bizikoa. Joxerra Garzia

Bitxia gainera **apustuzale** amorratuenak, puntuak alegia, lasaienak izatea, galdu naiz irabazi ezin tankerarik eman. Berria - Kirola

---

aputika *iz* jauzia.

-Nik ez dut lana egin aurretik saria jaso nahi; eta eskuineko eskuaz kaskada bi eman zituen bere ezkerreko lepagainean; **aputika** batean igo zitzaion hara tximinoa eta, kaxk-kaxk-kaxk, hortz-mintzoan jardun zitzaion, belarrira muturra jarrita; eta, itxura hauek eginez "kredo" bat bitartean jardun-ondoren, lurrera jaitsi zen beste **aputika** batean; orduan maisu Pedro, lasterka bizian Don Kijotegana joanda, belauniko jarri zitzaion eta hankak besarkatzen zizkiolarik, honela mintzatu zen: [...]. Patxi Ezkiaga

---

aqua regia *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)* *iz* errege ura ere deitua, azido nitrikoz eta aziko klorhidrikoz osatutako disoluzio oso korrosiboa.

Aqua regia delakoak, azido klorhidriko eta azido nitriko 3: 1 (b: b) nahasteak alegia, metal preziatuak disolbatuko ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Diamanteak hobeto aztertzeko matrizetik atera egin dira matrizea **aqua regia** bitartez disolbatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ongi irauten du oxidatu gabe eta ez da urtzen azido mineraletan eta inorganikoetan, baina bai azido klorhidrikoak eta azido nitrikoak 3:1 proportzioan nahastuta eratzen duten " **aqua regia** " izeneko erreaktiboan. ETC-entziklopedia

---

aquario ik **aquarius**.

---

aquarium ik **akuario**.

---

aquarius *(orobat **aquario**)* *iz* Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren hamaikagarren zeinua; latinez 'akuarioa' esan nahi du.

Teoria horren bultzatzaileen esanetan, **Aquariusen** Aroan espiritualtasuna eta sena izango dira nagusi gizartean. Berria - Gaiak

-Aquarius : Oraingoan zango, bernak eta zainak. Pello Zabala

Ur hori, esaten denez **Aquariotik** datorrena, Piscis australen buruaren eta Balearen isatsaren tartetik jaisten da. Santiago Iruretagoiena

-"Triangelu gorria", " **Aquario** berria". Aingeru Epaltza

---

ar 1 *izond* ernaltzeko ahalmena duen sexuari dagokiona. ik **eme**[1].

Arraza nahasiko **ar** bat, zuri-beltza; eta pitbull bi kume, **arra** eta emea. Gotzon Garate

Ez zekien Nofutur **arra** ala emea zen; ez zekien zenbat urte zituen. Jon Muñoz

Horregatik izan dira aspaldidanik irenduak zakurrak ez ezik, beste animalia **ar** batzuk ere: zaldiak, zerriak eta. Gotzon Garate

Manmad herrian zimino **ar** bat bere emearekin bizi zen. Gotzon Garate

Bederatzi tximu **ar** erabili dituzte esperimentuan. Berria - Gaiak

Bertan, hare muino batera igoa, basamortuari harrotasunez begira dagoen lehoi **ar** bat ageri zen. Patxi Zubizarreta

Zakur **ar** batek gogor egingo dio zakur **ar** arrotzari. Gotzon Garate

Non genetika aldetik **ar** diren horiek (XY) baina gero ebakuntza egin eta emakume bihurtu zituzten horiek eta orain gizon sentitzen direnak, emakumeak maite dituzten gizon irenduak? Luis Elberdin

Zakur **arrak** zazpi hilabetetan emeekin elkartzeko gauza dira. Gotzon Garate

Jakitun jarri zuen ez zela ezer ezkutatuko beren bizitza komunetik, eta publikoki egingo zuela bere, gogoak eman ahala, txakur **arrek** emeekin ohi dutenez. Juan Garzia

Egia esan, ez dute zakur **arrek** bezala elkarrekin haserre gorritan borrokan jarduten. Gotzon Garate

2 (izen gisa)

Arra aurretik, harro-harro, eta emea haren atzetik, eme-eme. Jon Muñoz

Hala, **arrak** bere aparatua emearen kloakan sartzerakoan gune hori estimulatuko zen, biek plazera sentitzeko moduan. Luis Elberdin

Aberriaren soldadu etorri diren **ar** horien usainera emeak ere hurreratu dira. Edorta Jimenez

Gehienek ez dute kide batekin lotura egonkorrik izaten, baizik eta jokabide sexual promiskuoak izaten dituzte taldeko beste **ar** eta emeekin. Luis Elberdin

Sits edo tximeleta emeak feromona horien lurrinak airean jartzen dituen momentutik, inguruko **ar** guztiak aztoratzen ditu eta soka ikustezin baten bidez lotuta baleude bezala erakarri. Arraintxo hori saldotan bizi ohi da, eta talde bakoitzak **ar** dominante bat bakarra izan ohi du. J.M. Olaizola "Txiliku"

Emeek ere euren artean egiten dute hori, **ar** uzkur eta nagien aurrean. Luis Elberdin

Ar bakartia etorriko da lehenik, eta handik puska batera elkartuko zaio emea, aurreko urteko bera. Imanol Zurutuza

Ar gazte bat da, atzeko ezkerreko hanka erkindurik du eta herrestan darama. Oskar Arana

Uso emeei segika dabilzkien uso **ar** papo puztuez oroitu nintzen. Patxi Zubizarreta

Geneek, hormonek, burmuinak, obarioek, barrabilek, klitoriak, zakilak, uteroak, prostatak, baginak eta abarrek sexua eta egitura oso bat osatuz joango dira, eta horrek eme edo **ar** anatomia emango digu. Luis Elberdin

Hori ez da **ar** balioetatik eraikitako topikoa? Berria - Kultura

Ez baita, alabaina, bere **ar** ofizioa hastetik buru ederki bete ez dezakeenari emazterik konfiatzen. Daniel Landart

Berarekin zegoen homosexualari egin ziotenaz, berriz, bertsio asko zebilen, eta bat bera ere ez haren **ar** kondizioaren mesedekoa. Anjel Lertxundi

-Hi, eta hire **ar** -fantasiak -esan dio neskak, mutilak esandakoen gaitzespena mozorrotzen ahalegindu gabe. Anjel Lertxundi

Ixabelek intxaur batzuk kraskatu zizkidan, erraz asko, ez nuen horratik nire **ar** -indarraz liluratuko. Joxean Sagaztizabal

Ez ziren lurrean erneko bertan erein ez diren hainbat eta hainbat; ez eta itsasoetan eta lurrean hainbat izaki aurrez **ar** -emeen elkartze barik sortuko. Imanol Unzurrunzaga

Gure datu eta apunteetan ezer gutxi ageri zen nonbait artazuriketetako **ar** -emeen arteko dialektikari buruz. Anjel Lertxundi

Posta Bulego Nagusiari zion errespeto-mota bera zion senarrari: gauza handi, seguru eta tinko bati zaion errespetoa; eta nahiz eta haren gaitasunen kopurua txikia zela jakin, onartzen zuen **ar** gisa zuen balio abstraktua. Irene Aldasoro

Sexua ez dela bat-batean deskargatzea, eta **arra** lasai geratzea. Luis Elberdin

Dena dela, **arra** eta urruza elkarrekin uztarrian sekulan ez ditut aditu, ez Basaburu aldeko usarioan, ez beste inongoan. Patziku Perurena

Matxarda horiekin heltzen dio **arrak** emeari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Burua galdu ondoren ere, **arrak** larrutan jarraitzen du, eta badirudi emearen portaera basatiak erraztu egiten duela arraren esperma isurketa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ondoren, emeak poltsa edo xixku berezi batean jasotzen du **arrak** emandako hazia -normalean udazkenean gertatzen da hau, lehen esan dugun bezala- baina saguzar emeak ahalmena izaten du hazi hori gordetzeko eta hurrengo udaberrian geratzen da ernaldurik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Akuri eder bat erosi nuen, begi berdeko eme bat, halako nazka ematen baitzidaten **arrek**, tresna lodi haiekin. Joxan Elosegi

Halaber, **arrek** bata besteari zakila ukitzen diote, miazkatzen, elkar masturbatzen dute eta bata bestea estaltzen; denen artean egiten dute hori, baita gazteek zaharragoekin ere. Luis Elberdin

3 *ar-eme* *pl*

Zeruko hegaztietatik ere zazpina bikote, **ar-emeak**, hauen arrazak munduan iraun dezan. Elizen arteko biblia

Bihi honen gaitasun sortzailea ezin dugu geure begiez ikusi, baina arrazoimenaz susma dezakegu; zeren elementu horien baitan indar ezkutu hori ez balego, ez ziren lurrean erneko bertan erein ez diren hainbat eta hainbat; ez eta itsasoetan eta lurrean hainbat izaki aurrez **ar-emeen** elkartze barik sortuko. Imanol Unzurrunzaga

Aita-amen betebeharrak ez al dira lehen arreta fisikoekin amaitzen? **Ar-emeen** gozamenaren fruituek ez al dituzte askatasun eta eskubide guztiak izaten? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Danbor horren barruan beste bat joango da, txikiagoa, eta handiarekin tornuan egindako **ar-eme** gisako kontza bidez lotuko da. Santiago Iruretagoiena

Gure datu eta apunteetan ezer gutxi ageri zen nonbait artazuriketetako **ar-emeen** arteko dialektikari buruz. Anjel Lertxundi

4 *asto arrak umea egin orduko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Asto arrak umea egin orduko. ETC-entziklopedia

5 *orein ar*

Orein arren heriotza tasa emeena halako bi da. Berria - Gaiak

6 *zuhandor ar* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Zuhandor arra ("Cornus mas") zuhaixka abartsua da, 5-8 m luze egiten dena eta, lore horia eta aranaren antzeko fruitu gorri morexkak dituena. ETC-entziklopedia

Zuhandor arra beharrean, zuhandor gotorra deituz adibidez. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ar emeak (5); **ar emeen** (3); **ar eta eme** (12); **ar eta emeak** (3); **beste ar** (5); **gizon ar** (3); **tximu ar** (3)

---

ara *adlag ipar* erara, modura.

Elgarren **ara** hartuko dute emeki emeki biriatuarrak eta garaztarrak. Herria

Denen **ara** egin nahi eta azkenean nehorena ez egiten osoki. Kameleoia izan beharko zuen horien denen **ara** egiteko! Herria

Ez bada beti gure nortasunaren agertzeko griña zerbaitekin, udatiarren **ara** egitea gatik bederen. Herria

Epaileek jendearen **ara** egin dute, Zanpantzar berehala erre behar zela erabakiz! Herria

Ez dea hautsi-mautsi oker nahasi bat, denen **ara** ezin eginez ahal bezala pikoan ezarria, egiazko batasun baten gogo handirik gabe gainerat? Herria

Denen **ara** ez baitu nehork sekulan egiten, batzuen ustez zati batzu luzexkoak ziren haatik eta beste batzu laburregiak. Herria

Sobera harreman badugu batzuekin eta besteekin, denen **ara** nahi dugu egin... Menane Oxandabaratz

---

arabar *(orobat **arabatar** g.er.)* **1** *izlag* Arabakoa, Arabari dagokiona; Arabako biztanlea.

Fernández de Leunda bezala, esan nien deitura **arabar** jatorrak zirela Pérez, López, Martínez eta antzekoak, euskal toponimoei lotuak. Ramon Saizarbitoria

Hala nola milaka **arabar** bildu diren Armentiako basilikaren inguruetan. Herria

Sari batzu ere banatu dira, hala nola gasna hoberenarena, **arabar** artzain bati joan zaiona. Herria

1564-ean Jadanik Juan Perez de Lazarraga **arabar** idazleak aldi bat baino gehiago aipu zuen "Euskel erria". Herria

Gipuzkoar, **arabar** eta bizkaitar batailoiek, nirekin aburukide antza, goitik iristen zitzaizkien aginduei jaramonik ez eginez, etsitzea erabaki zuten. Txillardegi

-Arabar estilokoa eta Erdi Arokoa? -galdetu zuen Leirek, andrearen hitzak ustez egoki itzuliz. Aitor Arana

Adela, gure **arabar** lorea. Juan Kruz Igerabide

Orduan, mika hasi zen inguruetako ehun, hari, izpi eta belartxoak biltzen eta habia haiekin apaintzen eta amaitu aurretik esan zuen **arabar** zozoak: [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez naiz gogoratzen babarrunak, **arabar** ardoaz maneiatutako idi erregosia edo hostiak binagretan bazkaldu genituen. Joxean Sagaztizabal

Euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako poesia utzi digun **arabar** honek gaztelania erabili zuen anagrametan. Iñaki Arranz

Zelten lurralde mahats-bakoan estimurik bazioten, pentsa gurean! Hasi Iparraldeko Irulegitik, segi Getari aldeko kosta bazterretik, eta pasa Nafarroako Erribera aldera, Nafar Errioxa, **Arabar** Errioxa eta beste... horrenbeste zuztar eta zain dituen beste zuhaitzik ba ote, gure baso guztiak bat eginda ere...? Pello Zabala

2 (izen gisa)

EAko arduradunaren esanetan, harrigarria da **"arabarren** botoen herenarekin gobernatzen ari den alderdi batek arabar guztien izenean hitz egin nahi izatea, eta **arabar** guztien ordezkaritza izango balu bezala aritzea. Berria - Harian

Katalan Herria bezala, zatituta dago Euskal Herria: lapurtarrak eta nafarroa beherearrak daude multzo baten, zuberotarrak beste baten, nafarrak eurenean, eta giputzak, **arabarrak** eta bizkaitarrak laugarrenean. Koldo Zuazo

Nafarren eta **arabarren** askatasuna gustatuko zitzaiola aipatua zuen batek baino gehiagok. Lutxo Egia

Lehenbizikoak nafarrak ziren, jakina, nafarra izaki bera, ondoren gaztelauak, gero **arabarrak**, gipuzkoarrak hurrena eta atzenak. Koro Navarro

Gaur egun, mendebalekoekin eta giputzekin dute **arabarrek** harremana. Koldo Zuazo

Aiegin, Jurramendiz Lizarra aldean, **arabarrek** osatutako hiru batailoi: 1.a, 2.a eta 3.a. Txillardegi

Trentoko Kontzilioko erabakiak beteaz, kristau ikasbide zenbait itzuli ziren euskarara: Joan Perez Betolatza **arabarrarena**, esate baterako, 1596an. Koldo Zuazo

3 (izenondo gisa)

Hor ziren bereziki Ibarretxe Lehendakaria, Eusko Jaurlaritzako bi sailburü (ministro), EAko depütatüen ordezkaria, bi euskaltzain (Henrike Knorr **arabarra** eta Patxi Zabaleta nafarra), Juan-Jo Zearreta Euskaltzaindiako kargüdüna. Herria

Inori ez zaio hutsean pasatu idazle **arabarrak** XVI. mendean idatzitako lerroa: "Zegaiti dozun Euskel Erria ainbat bentajaz dotadu". Bernardo Atxaga

Artzain **arabarren** bat sartu zitzaigulako tartean. Ramon Saizarbitoria

Euskara Euskal Herri osora zabaldu da: Bizkaiko Karrantzara, Ebro ibai ondoko eskualde **arabar** eta nafarretara, Pirinio magaleko Zaraitzu eta Erronkari ibarretara, Baiona-Angelu-Miarritze hiribilgunera. Koldo Zuazo

Hona azken karrikak: Las Calzadas (hemen da iristen Baionatik, Gasteizen gaindi, Burgosera doan ohiko galtzada **arabarra**), gero San Juan karrika, Avellanos karrika eta azkenik Fernan Gonzalez karrika. Piarres Aintziart

4 ***arabar bola joko*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Arabar bola jokoa garai batean (dioten arabera XVII. mendetik aurrera) Araba osoan zehar oso zabalduta zegoen herri-jokoa da. ETC-entziklopedia

Euskal Herriko Bola Joko federazioak (1986an sortu zena) honako 13 aldaera hauek ditu federatu moduan zerrendaturik: **Arabar bola jokoa**, Aiarako bola jokoa ("Bolatoki" izenarekin, hala deitzen baitzaio batzuetan, bolalekuari erreferentzia egiteko erabiltzen den izen euskaldunetik hartuta)... ETC-entziklopedia

5 ***Arabar Errioxa***

Bazkaria ekartzean areago bizitu zen, armairutik, gordeta zeukan **Arabar Errioxa** botila aterarazi zigunean, batez ere. Berria - Kirola

Bihar, In vino... musica zikloak, ardoa dastatzera eramango ditu musika zaleak Biasterira (**Arabar Errioxa**). Berria - Kultura

Zelten lurralde mahats-bakoan estimurik bazioten, pentsa gurean! Hasi Iparraldeko Irulegitik, segi Getari aldeko kosta bazterretik, eta pasa Nafarroako Erribera aldera, Nafar Errioxa, **Arabar Errioxa** eta beste... horrenbeste zuztar eta zain dituen beste zuhaitzik ba ote, gure baso guztiak bat eginda ere...? Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabar errioxa (3); **arabar guztien** (3)

arabarra da (3); **arabarra izan zen** (4); **de galdeano arabarra** (3); **zubiaga arabarra** (3)

arabarrak izan (3); **da arabarrak** (3); **dira arabarrak** (3); **idazle arabarrak** (3); **zubiaga arabarrak** (3)

arabarrek ulertuko (3); **baina arabarrek** (5); **jokatuko dute arabarrek** (3); **zuten arabarrek** (5)

zuen arabarren (3)

---

arabarba *iz* gazi-belarraren familiako landarea, hosto-zabala eta errizoma-lodia, heste-aringarri gisa erabiltzen dena *(Rheum rabarbarum)*.

Ez naiz **arabarbaren** oso zalea ere; ezezkoan nago. Mirentxu Larrañaga

Bere bizitzaren azkeneko egunera arte, itsu-itsuan sinetsi zuen antzinako erremedioetan, esate baterako **arabarba**-hostoetan. Julen Gabiria

Dagoeneko **arabarba**, marrubiak eta gereziak ekarri dizkigute, eta oraingoz behintzat ez dut uste aspertuko garenik. Josu Zabaleta

---

arabaso ik **arbaso**.

---

arabatar ik **arabar**.

---

arabazozo **1** *iz* txori kantaria, orban txuriak dituzten luma beltzak dituena, Euskal Herrian udazkenean talde ugarietan agertzen dena *(Sturnus vulgaris)*.

Besteak beste neguan **arabazozoak** ehunka etortzen dira. Gotzon Garate

2 ***arabazozo beltz*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Arabazozo beltza ("Sturnus unicolor") sturnidae familiako hegazti paseriformea da, Iberiar penintsulan, ipar-mendebaldeko Afrikan, Sizilian, Sardinian eta Korsikan bizi dena. ETC-entziklopedia

Gainera, zozoaren, usapal turkiarraren eta **arabazozo beltzaren** ehiza baimentzen zen. ETC-prentsa

Ingurumen Sailaren zerrendan ageri diren espezie batzuk ez dira ehizarako, eta babestuta daude haietako batzuk -usapal turkiarra eta **arabazozo beltza**, esaterako-, baina haien deuseztapena ahalbidetzen du lege berriak, halere. ETC-prentsa

Txolarreak, **arabazozo beltzak** eta usapal turkiarrak ehizatzeko baimena eman du Nafarroako Gobernuak, debekualdi erdiko ehizarako. ETC-prentsa

3 ***arabazozo pikart***

Lehen aldia da etxe-txolarrea, hegabera, enara eta **arabazozo pikarta** Europan kezka eragiten duten hegaztien zerrendan sartzen direna. Berria - Gaiak

---

arabe *(ETCn **141** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **arabiar** agertzen da) iz/izond* arabiarra.

Arabe bat da eta eskolatua gainerat eta holakoak ez dituzte begi onez ikusten. Berria - Harian

Kartzelara zihoan autobusaren atean plantatu zen, jada hor metatzen ziren ama, ahizpa eta emazte beltz, **arabe**, asiar eta pobreak ziruditen zurien herrokan. Itxaro Borda

Zer ari gaituk **arabe** zikin horientzat lanean? Xabier Montoia

Arabe itxurakoak dira nagusi eta baita ikatzaren beltzekoak ere. Hasier Etxeberria

Baziren bilduak 22 herri **arabe** eta 12 hegoamerikar, ONU eta OMC ere horrara komitaturik. Herria

Hori, baina, itxurakeria hutsa izan zen: mundu **arabe** "demokratikoa" badela frogatu nahi dutelako da. Berria - Mundua

Laura Mijares Madrilgo Unibertsitate Konplutensean ikasketa **arabe** eta islamikoaren departamenduko irakaslea da. Berria - Euskal Herria

Kausa berberek ondorio berberak dituzte Tonkinen, eta ez dago, bidaiari **arabeek** egiten duten bezala -hauen berri Renaudotek eman digu-, metenpsikosian sinetsi beharrik horretarako. Iñaki Iñurrieta

Indarra miresten ditek **arabeek**, horri baizik ez ziotek behatzen. Xabier Montoia

Judutarrek iraultza bat burutuko zuten Espainian, aberatsak bezain gudariak izan balira, edota **arabeekin** elkar hartzen jakin izan balute. Juan Martin Elexpuru

Turkia da eredu berezia **arabeentzat** eta Al Qaidako buru beroek ezin onartua. Herria

arabera *(orobat **araura** g.er. eta **ariora** g.er.)* **1** *adlag/postpos* bezala, adierazten denarekin bat datorrela, eredura.

Bere naturaren **arabera** zihoan jantzita, erabaki zuen andereñoak. Anton Garikano

Are gutxiago bana ditzake abizenak abertzaletasun neurrien **arabera**. Iñigo Aranbarri

Egokitzapena egiterakoan, zatiak ez dira kantuen zenbakien **arabera** osatu zehatz-mehatz, argumentuaren aurrerabideari jarraiki baizik. Juan Kruz Igerabide

Ustekabe batek maitasuna ernarazten duenean, dena ordenatzen da gizonarengan maitasun horren **arabera**, eta maitasunak zabaltasunaren sentimena ematen dio. Josu Zabaleta

Merlin aztiak Artur erregeari ezarritako betebeharraren **arabera**, zaldunen eginbehar nagusia Grial Saindua aurkitzea zen. Juan Kruz Igerabide

Segurtasun arrazoiengatik umeentzako jaka bakero bat merkatutik atera dutela dio bertan: egindako test batzuen **arabera** botoiak errazegi askatzen omen zaizkio, umeak hura irentsi eta itotzeko arriskuan jarriz. Pako Aristi

Balkoian lotan emandako lehenengo gauean hartu nuen erabakia, neguko hotzaren laguntzaz; erabakia hartu eta gauzatu: hurrengo goizean nire jabeak etxe ondoko parkera atera ninduen, etxera lehenbailehen itzultzeko gogoz, azkenaldiko ohituraren **arabera**. Jon Arretxe

Freuden **arabera**, garuneko gorotz dira ametsak; egunez sartzen zaizkigun ideia eta sentipen ustelen irteera. Aritz Gorrotxategi

Nork bere ekipoa defendatzea du lehen helburua eta horren **arabera** eraikitzen da diskurtsoa. Hasier Etxeberria

Halaber, abokatuak maite duen logikaren **arabera** esateko: Anjel Lertxundi

Sexualitatea bakoitzak bere erara bizi du, modu subjektiboan, bere izate femenino edo maskulinotik eta bere desioen **arabera**: homosexualak, heterosexualak, etab. Luis Elberdin

Era berean, ingelesaren gramatika bat esaldi corpus mugatu batean oinarritzen da (behatutako gertakariak), eta gramatika-erregelak eskaintzen ditu (arauak), ingelesaren fonema, osagai, eta abarren antzeko izaki hipotetikoen **arabera** sortuak. Itziar Laka

Batzuetan, txanden **arabera** eta, beste bizkartzain batzuk izaten baititu, Joseba, Pablo, eta errubio hura, izena ahaztu zaio jada. Iban Zaldua

Zerbait berria ekarriko digula suposatu eta etorkizunaren esperoan eman dugu denbora, asmoekin, usteekin, koiunturalki, egoeraren **arabera**, egunkarien titularrak gosalduz, orain gertatu beharrean dena geroan gauzatuko delakoan. Joseba Sarrionandia

Harago joan nindunan, neure kalkuluen **arabera**, eta ez ninan ezer aurkitu. Juan Garzia

Birilitatea eta kemena oinarri harturik, Jainkoak gizona emakumearen gainetik sortu du, ados, baina horren **arabera** gizon zaharra eta mutiko gaztea berdinak izango lirateke eta hori ez da horrela. Patxi Zubizarreta

- Joan nahi duzun lekuaren **arabera**. Lopez de Arana

Zer zetorren ikusi, eta horren **arabera** jokatu. Fernando Morillo

Haren gosearen **arabera** izaten da. Itziar Otegi

Freddy Greenek eskuak kikaran berotzen zituen bitartean, Jeepa utzi eta gorpua garraiatzeko behorra eramango zutela erabaki zuen guardak, tokiaz entzundako erreferentzien **arabera**. Joxemari Urteaga

-Denak dira politak, emakumearen eta momentuaren **arabera**. Jasone Osoro

Antzaren arteko diferentziak, metodo zorrotz honen **arabera** argituak, dezenteak dira: askok dohain arrunt eta ziztrinak dituzte, baina beste batzuk, garbi dago, antzara handiak dira. Xabier Olarra

Hori guztia kontuan hartuta, Espainiako Gobernu berriak bere gain hartu dituen uraren arloan abiatu politika berrien **arabera**, Itoitz jota egonen litzateke; muinean jota; sozialisten tesi berrien erabat kontrakoa delako". Edurne Elizondo

Websterrek berak jasotako beste ipuin baten **arabera**, neska eder bat dago jauregi batean giltzatuta; neskak eria pasatzen du gauero sarraila-zulotik eta Basa Jaunak xurgatu eta xurgatu egiten dio; ondorioz, neska ahitzen eta ahitzen ari da, suspirio etengabeen artean. Anjel Lertxundi

Zure erantzunen **arabera** taula bat osatuko du pisua alokatu nahi duenak eta puntuaziorik altuena duenari deituko dio. Harkaitz Cano

Irratian ziotenaren **arabera**, klonatze teknika jendeetara hedatuko zuten denbora labur barne. Itxaro Borda

Aurrez eginak zituen taxuen **arabera** ostegun eguerdirako etxean beharko luke. Pello Lizarralde

Polizi iturrien **arabera**, bere hartatik -metro bi baino gutxiago, seguraski- eta buruz buru egindako bi tirok eragin zioten heriotza. Aingeru Epaltza

Hortaz, aberastasuna berdintasunez banatzearen aldeko teoria infernutarrek kutsatua eta, horregatik, bere pentsamoldearen **arabera** jokatzen duena, ez ordea On Camillo apaiz jaunaren antzera, ze... Koldo Biguri

Haurtzaroan eta gaztaroan Italiako iparraldeko herri eta hiri askotan bizi izan zen, bere aita militarra baitzen, haren bizileku aldaketen **arabera**. Josu Zabaleta

Gizonak, bestalde, jarraipenean zehar ikusitakoaren **arabera**, ohiko bizimoduan itxura gordetzen zuen, eta gisa hartan jarraituko zuela ematen zuen, hau da, joera homosexualak ezkutuan gordetzen. Migel Angel Mintegi

Nire birika-minbizia aienatzen ari zen, eta azken azterketaren ostean onkologoak esandakoaren **arabera**, bazen baikortasun zuhur baterako arrazoirik. Oskar Arana

Pantailak eskaintzen duen informazioaren **arabera**, oraingo gure abiada orduko 960 kilometrora igo da, 10ø100 metrotan gaude eta tenperatura zeropetik 44 gradukoa da. Patxi Zubizarreta

Orraztu bitartean utzi dioten aldizkariaren **arabera**, Indonesiak ba omen ditu hamazazpi mila irla baino gehiago Ozeano Barearen eta Indiakoaren artean barreiatuta. Patxi Iturritegi

Lisaren pentsamoldearen **arabera**, mundu guztiak lan egin beharra zuen, mantentzeko; nork bere zorionaren ardura hartu behar zuen bere gain; ez zegoen ondo nagikeria sustatzea. Karlos Zabala

Eta jarioak bigarren pisuko leihoan jotzen zuen, tarteka bete-betean, haizearen **arabera**. Unai Iturriaga

Zurezko apal zurietako liburuak tamainaren **arabera** antolaturik zeuden behetik gora. Irene Aldasoro

Euskaltasunaren zenbait ikuspegiren **arabera**, hantxe behar nuke neure funtsa, neure oinarri eta bihotza. Xabier Mendiguren Elizegi

Merkatuak gehiago ordaintzen dio, datuen **arabera**, unibertsitateko lizentziadun bati, lizentziarik ez duenari baino. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

2 (-en atzizkia duen aditzari atxikia)

Dena den, erraten duanaren **arabera**, galdera franko egin zizkiaten. Alberto Ladron Arana

Ehuneko zortziko korritua barne, oker ez banaiz, bankuek ezarritako tasak, egunkarietan irakurtzen zutenaren **arabera**. Fernando Rey

Gero neskame ibili zen andre gupidagabe batzuen zerbitzuan eta, kontatzen zuenaren **arabera**, halako belarrondokoak ematen zizkioten, ezen gero buruko minez egoten baitzen egun batzuetan. Fernando Rey

Aurreko egunetan Bavarian ikusia nuenaren **arabera**, jokalari urtetsu haiek sekulako grina erakusten zuten xake kontuetan. Alberto Ladron Arana

Funtsean, Kattalin, zure aitatxi ere, gaur jakinarazi didazunaren **arabera** ... Eneko Bidegain

Bestalde, David Lechek aztertu duenaren **arabera**, badirudi txantxangorria ez dela batere txori onbera, inoxoa eta errukarria, guziz bestelakoa baizik. Patziku Perurena

Ez dakit zenbatetan, bihar Irango kontsulatuan esaten didatenaren **arabera**. Jon Arretxe

3 (-n atzizkia duen aditzari atxikia)

Hala baldin bada -iradoki didaten **arabera**; ohartarazpen gisa, alegia-, esan behar dinat ez dunala hain argi heure buruarekikoa, ene alabari eta hire ohoreari dagokionaz. Juan Garzia

Orain nola bizi zaren **arabera** izango da zure hurrengo bizitza. Gotzon Garate

4 *erloju orratzen arabera* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Batzuetan ez da "noranzko" hitza sartzen eta "erloju-orratzen kontra" (EOK) edo "**erloju-orratzen arabera**" (E.OA) erabiltzen da soilik. ETC-entziklopedia

5 *erloju orratzen araberako* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ondoriozta dezakegu (ikus 46-8 irudia) partikulak norabide batean azeleratzen dituen eremu elektriko berak haien antipartikulak aurkako norabidean azeleratzen dituela eta, berebat, partikula kargadunei erloju-orratzen aurkako ibilbideari jarraiarazten dien eremu magnetiko berak haien antipartikulei **erloju-orratzen araberako** ibilbideari jarraiarazten diela. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *hizkuntzaren araberako diskriminazio* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hizkuntzaren araberako diskriminazioa onartezina dela nabarmendu dute hiru hedabideek, eta egoera hori zuzentzera deitu dute Frantzia. ETC-prentsa

7 *itxura guztien arabera*

Zeren, **itxura** guztien arabera, mozkor-mozkor eginik baitzegoen, galdua zuten, **itxura** guztien arabera, oharmen erne eta argia. Jose Morales

Hilketa bat, **itxura** guztien ariora. Aingeru Epaltza

Bisitan etorri zitzaidaan, eta, **itxura** guztien arabera, sinistu egin zian nik kontatu niona. Anjel Lertxundi

Itxura guztien arabera, biziki ona zen bere emaztearentzat. Daniel Landart

8 *itxuren arabera*

Horra beraz bi apez on galdu dituela berriz ere gure herri hunek, ordainen mentura segurrik gabe mementoan, **itxuren arabera** bederen. Herria

10. Bazen anaia bat, **itxuren arabera**, santutasun bikaina eta aparteko biziera zuena; baina bere burua nabarmentzea gustatzen zitzaion. Askoren artean

Eta garuneko lobulu frontaletako lesio larri baten ondoren, **itxuren arabera**, izaeraz aldatu ez izanak, berriz, bide ematen zuen pentsatzeko lobuluok ez zutela zereginik. Xabier Olarra

Itxuren arabera dena lo dago. Marzel Etxehandi

Urantzia-Los Arcos herri aberatsa izana, **itxuren arabera**: karrika nagusi luzea, etxe eta bereziki balkoi ederrak, arkuak eta Santa María elizaren arkitektura berezia bere hiru edo lau estiloekin. Piarres Aintziart

Elur alhan zen, **itxuren arabera** gailurretako belarra gustukoa zuen. Michel Oronoz

Parean zeukan gizonak, **itxuren arabera** jabe ahaltsua baina azken finean laboraria zenak, gogoz bazekien Rousseau-ren Le contrat social obrako ahapaldi bat atera zion. Elena Touyarou

-"Haiek", **itxuren arabera** hildakoaren ordenagailua norbaitek manipulatu zuela ziotek. Aingeru Epaltza

Elkar ontsaxko maite **itxuren arabera**. Janbattitt Dirassar

Eduardo VIII.a eta Yorkeko dukea erail egin zituzten, Rikardoren aginduz, **itxuren arabera**. Juan Martin Elexpuru

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 25 aldiz agertzen direnak)

abokatuaren arabera (25); **adierazitakoaren arabera** (54); **adierazpenen arabera** (25); **adituen arabera** (253); **agentziaren arabera** (54); **agentzien arabera** (50); **agintarien arabera** (62); **agiriaren arabera** (28); **akordioaren arabera** (56); **aldizkariaren arabera** (25); **antolatzaileen arabera** (74); **arabera aldatzen** (31); **arabera baizik** (25); **arabera bizi** (65); **arabera egin** (65); **arabera egingo** (29); **arabera egiten** (49); **arabera erabakiko** (33); **arabera erabakitzen** (28); **arabera ere** (37); **arabera erredakzioa** (46); **arabera ez** (66); **arabera jokatu** (47); **arabera jokatzen** (42); **arabera neurtzen** (25); **arabera soilik** (28); **araudiaren arabera** (33); **arauen arabera** (41); **arduradunaren arabera** (28); **arduradunen arabera** (29); **argibideen arabera** (36); **armadaren arabera** (36); **artikuluaren arabera** (28); **askatasunaren arabera** (39); **aurreikuspenen arabera** (66); **azaldutakoaren arabera** (58); **azken datuen arabera** (33); **azken inkesten arabera** (30); **azterketaren arabera** (38); **bakoitzaren arabera** (25); **batasunaren arabera** (26); **baten arabera** (607); **batzordearen arabera** (30); **batzuen arabera** (170); **beharren arabera** (56); **berri agentzien arabera** (39); **berriaren arabera** (50); **berrien arabera** (31); **buruaren arabera** (29); **datuen arabera** (592); **denaren arabera** (45); **dioenaren arabera** (27); **dituen datuen arabera** (27); **duenaren arabera** (113); **dugunaren arabera** (26); **dutenaren arabera** (41); **egoeraren arabera** (44); **egunkariaren arabera** (89); **ekologisten arabera** (26); **elkartearen arabera** (29); **emaitzen arabera** (90); **emandako argibideen arabera** (26); **emandako datuen arabera** (168); **en arabera** (65); **epaiaren arabera** (26); **epailearen arabera** (26); **erakundearen arabera** (190); **erakundeen arabera** (32); **ertzaintzaren arabera** (42); **esandakoaren arabera** (118); **gobernuaren arabera** (61); **guzien arabera** (102); **guztien arabera** (252); **haien arabera** (82); **haren arabera** (304); **hauen arabera** (45); **herrizaingo sailaren arabera** (44); **hitzarmenaren arabera** (26); **honen arabera** (160); **horien arabera** (188); **horren arabera** (773); **ikerketa baten arabera** (86); **ikerketaren arabera** (70); **ikerketen arabera** (77); **ikertzaileen arabera** (42); **ikusitakoaren arabera** (40); **informazio iturriren arabera** (62); **informazioaren arabera** (77); **informazioen arabera** (35); **inkesta baten arabera** (54); **inkestaren arabera** (70); **inkesten arabera** (133); **interesen arabera** (78); **iritziaren arabera** (25); **irizpideen arabera** (42); **iturri batzuen arabera** (28); **iturri ofizialen arabera** (100); **iturrien arabera** (285); **iturriren arabera** (137); **itxura guzien arabera** (96); **itxura guztien arabera** (190); **itxuren arabera** (55); **jaurlaritzaren arabera** (29); **kalkuluen arabera** (88); **kopuruaren arabera** (37); **legearen arabera** (204); **legediaren arabera** (40); **legeen arabera** (120); **lekukoen arabera** (89); **mailaren arabera** (34); **medikuen arabera** (33); **ministerioaren arabera** (54); **ministroaren arabera** (59); **mundu erakundearen arabera** (44); **nagusiaren arabera** (48); **neurriaren arabera** (26); **oharraren arabera** (30); **ordenaren arabera** (31); **ordezkariaren arabera** (30); **planaren arabera** (37); **polizia iturrien arabera** (64); **poliziaren arabera** (127); **premien arabera** (28); **presidentearen arabera** (53); **proiektuaren arabera** (26); **proposamenaren arabera** (35); **sailaren arabera** (70); **sindikatuaren arabera** (32); **sindikatuen arabera** (49); **taldearen arabera** (30); **txosten baten arabera** (45); **txostenaren arabera** (191); **zeinaren arabera** (38); **zenbait iturriren arabera** (58); **zientzialarien arabera** (42); **zuzendariaren arabera** (59)

---

araberako 1 'arabera'ri dagokion izenlaguna.

Amaren sabelaren **araberakoa** da. Aurelia Arkotxa

Jendearekiko genuen iritzia ere, gehienbat, jendeak gure anaia handiarekiko zuen jokabidearen **araberakoa** izaten zen. Mirentxu Larrañaga

Hasi berria zara bizitzan... dena datozen bi urteen **araberakoa** da. Lopez de Arana

Jendetzaren **araberako** soldadu kopurua bildu behar zuten herriek, hemezortzi eta berrogei urte arteko gizonen artean zozketa behar izan zuten egin, eta horrek sekulako allafera sortu zuen. Elena Touyarou

Hona Francisco Herrera Luque (Caracas, 1927, duela urte gutxi hila) idazleak egiten zuen koloreen **araberako** giza-taldeen sailkapena: Pako Aristi

Legearen **araberakoa**, aitzitik, ez da beti egoki, legeak gehiago ari direlako gizartearen onura politikoaz, gizakiaren onura moralaz baino. Andres Urrutia

Dirua eman ahala eransten zion fraideak zegokion koloreko marrari beste koska bat, emandako diruaren **araberakoa**. Joxerra Garzia

Fiskalak eskatu zuena kode penal arruntaren **araberakoa** eskatu zuen, ez kode militarrean oinarrituta. Koldo Izagirre

Proiektua ez bada legearen **araberakoa**, alda dezagun legea. Edurne Elizondo

Pena eman zidan, baina haiexek izan ziren Edgarren programaren **araberako** lehen neurriak. Joxan Elosegi

Mediku burutsu batek dena somatikoa, gorputzaren **araberakoa** dela esan dit berrikitan Bilbon. Gotzon Garate

• **2** (bere horretan, aurretik -en atzizkirik gabe) *izlag* neurrikoa, heinekoa.

Erreginaren alde zirenetan, beraz etsaietan, **araberako** hitzak erabili behar dira, Antoine, Agramonteko kondea, Makeako bizkondea, Lalanne Donibane Garaziko kapitaina. Michel Oronoz

Baionako inprimeria xahar batean egina zuen aprendizgoa eta "conducteur offset" kalifikazioa erdietsi ondoan, **araberako** lana zeukan. Daniel Landart

Ogitarteko bat, hoin handia, hoin lodia, nola izan daitekeen ere, hori ere zerbait da: sobera arroltze hautsi ote dituzte, ogi erdi baten hartzeko, ala azken hau ja hor zeno, **araberako** moleta metatu dute? Piarres Aintziart

Makur argitutako egunari **araberako** segida emanez, deus zuzenik ez zitzaidan gertatu lantokira nintzenetik. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adigaien araberako (6); **adinaren araberako** (4); **ahalen araberako** (3); **araberako arau** (3); **araberako banaketa** (3); **araberako bere** (6); **araberako bizimoldea** (3); **araberako deskribapena baino** (3); **araberako diru** (6); **araberako erabakia** (4); **araberako erabakiak hartu** (4); **araberako eragina** (3); **araberako ezaugarriak** (3); **araberako gizarte** (3); **araberako hizkuntza** (3); **araberako itxura** (3); **araberako jarrera** (3); **araberako joera** (3); **araberako jokabidea** (3); **araberako laguntzak** (4); **araberako lana** (3); **araberako politika** (3); **araberako sailkapena** (5); **araberako soldata igoera** (5); **araberako urratsak egiten** (3); **araberako urratsik** (3)

bainan araberako (4); **baten araberako** (12); **batzuen araberako** (3); **behar orduen araberako** (4); **beharren araberako** (3); **beren araberako** (3); **borondatearen araberako** (4); **botoen araberako** (3); **diola araberako saria** (3); **diru sarreren araberako** (4); **ebanjelioaren araberako** (8); **egoeraren araberako** (8); **eman diola araberako** (3); **ere araberako** (4); **erlijioaren araberako hilerriak** (3); **erregelen araberako** (4); **eskumenen araberako** (3); **euren interesen araberako** (5); **gaien araberako** (3); **garrantziaren araberako** (3); **generoaren araberako bazterketa** (3); **haien araberako** (4); **helburuen araberako** (3); **izaeraren araberako** (5); **konstituzioaren araberako** (3); **kopuruaren araberako** (7); **kpiren araberako soldata** (4); **lanaren araberako** (3); **legearen araberako** (10); **legeen araberako** (3); **modaren araberako** (4); **osagai egituraren araberako** (3); **politikoen araberako** (3); **printzipioen araberako** (3); **proportzioaren araberako** (3); **sexuaren araberako lan** (3); **zuzenbidearen araberako** (3)

araberakoa bada (5); **araberakoa baita** (6); **araberakoa baizik** (5); **araberakoa da hori** (7); **araberakoa dela** (17); **araberakoa den** (7); **araberakoa ere** (4); **araberakoa izan behar** (13); **araberakoa izan beharko** (5); **araberakoa izan da** (4); **araberakoa izan daiteke** (4); **araberakoa izanen da** (9); **araberakoa izango baita** (3); **araberakoa izango da** (55); **araberakoa izango dela** (9); **araberakoa izatea** (3); **araberakoa izaten da** (15); **araberakoa izaten zen** (5); **araberakoa zela** (6); **bainan azkarrari araberakoa** (3); **bakoitzaren araberakoa da** (3); **baten araberakoa** (5); **den araberakoa** (3); **denboraren araberakoa** (4); **duen ahalmenaren araberakoa** (3); **duenaren araberakoa** (3); **duten araberakoa** (3); **duten jokabidearen araberakoa** (4); **egoeraren araberakoa izango** (4); **egunaren araberakoa** (3); **eguraldiaren araberakoa** (3); **emaitzen araberakoa** (5); **ere araberakoa zen** (4); **esperientziaren araberakoa** (3); **ezaugarrien araberakoa** (4); **haragiaren araberakoa da** (3); **harremanen araberakoa** (3); **helburuen araberakoa** (3); **heziketaren araberakoa** (3); **horien araberakoa** (3); **horren araberakoa da** (3); **horren araberakoa izango** (10); **izaeraren araberakoa** (3); **jokabidearen araberakoa izanen** (3); **konpromisoen araberakoa izango** (3); **konstituzioaren araberakoa** (3); **kopuruaren araberakoa izango** (3); **lanaren araberakoa** (3); **mailaren araberakoa da** (3); **merituen araberakoa** (3); **negarra haragiaren araberakoa** (3); **pertsona bakoitzaren araberakoa** (3); **politikoaren araberakoa** (3); **zeren**

araberakoa da (3)

araberakoak dira (25); araberakoak direla (4); araberakoak izan behar (7); araberakoak izan dira (6); araberakoak izango direla (5); araberakoak izaten dira (3); araberakoak zirela (4); araberakoak ziren (4); baten araberakoak (8); beharren araberakoak (3); ere araberakoak (5); horren araberakoak (4); legeen araberakoak (3); lekuaren araberakoak (4)

---

araberakotasun *iz* araberakoa denaren nolakotasuna.

Herrien elkartasunaren alde borrokatzeagatik eta maitasunaren xalotasuna goraipatzeagatik; hitz batean, nire ideia etikoen eta estetikoen araberako izan, eta nire **araberakotasun** hori liburuetan erakusteagatik. Karlos Linazasoro

---

araberan **1** *adlag* hein berean.

Zeren eta **araberan** handia gostatzen da ttipia baino merkexago. Menane Oxandabaratz

Alde batetik, etxe hori kudeatzen duen elkarteak ba omen du eskugain poxi bat obra zerbaiti plantatzeko eta diru laguntza batzu **araberan** eskatzeko. Herria

Mintzo bai mintzo zen Pacelli aita saindua edozein gaiez, baina entzuten, entzuten ote zuen **araberan**, Erromako dorregain hartarik, behereko elizaren deia. Piarres Xarriton

Ramsay andreari buruz zerabilen gogoeta xumea **araberan** zetorren etxe lasai honekin; ke honekin; egunsentiko aire goiztar eder honekin. Anton Garikano

Araberan, zigorrak ere igan dira arrunt. Berria - Harian

Ez du iduri xuxentzeak **araberan** izan direla. Herria

2 *adlag (-en* atzizkiaren eskuinean). ik **arabera**.

Arrapostuen **araberan**, ekipak sailkatuak izanen dituzu. Herria

Matematikaren perfekzioa aipatu baitut (sumatzen ahal dudanaren **araberan** bederen). Piarres Aintziart

Beste hauetarik zenbait ere, beste saioen ondotik, notatzeen **araberan**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalen araberan (4); **ere araberan** (14); **ez araberan** (4)

---

araberatu, arabera(tu), araberatzen du *ad* arabera egin edo gertatu. ik **bezalakotu**.

Ohartu berria naiz: ale bakana izateak moldatu eta **araberatu** dit bizitza. Aingeru Epaltza

Hortik aitzinakoa Kristinaren umoreak **araberatuko** zuen. Aingeru Epaltza

Hain juxtu ere, zakarkeria genuen lehena, gure bizi gazte eta ttattarra **araberatzen** zuten milaka arau handi eta tikietan. Aingeru Epaltza

---

araberean *izlag* era berean, hein berean, proportzioan.

Baina hori egia izanik ere, egia baldin bada behintzat, ezin da ahaztu alderdi nazionalistek espresuki eskatu zutela botorik ez ematea, eta Euskal Herrian gertatu zen abstentzio maila, **araberean**, Espainia osokoa baino 18 puntuz goragokoa izan. Pello Salaburu

Gure Erkidegoan, **araberean**, 1997an % 3,7k erabiltzen zuen Internet, eta Nafarroan % 6,1ek. Pello Salaburu

Espainian norbait gai baldin bada liburu baten 10.000 ale saltzeko -Espainian bakarrik, diot, eta milaka horiek ez dira gutxi batere-, euskaraz arrakastatzat hartu beharko litzateke 125 ale saltzea, hori baitator **araberean**. Pello Salaburu

---

arabesko **1** *iz* apaingarri gisa errepikatzen den forma edo irudia, elkarrekin lotzen ziren irudi geometrikoek osatzen dutena.

Musulmanek diote **arabeskoak** ezerk baino hobeto errepresentatzen duela Alaren infinitutasuna. Bernardo Atxaga

Hormak, baina, hondamena gorabehera, **arabeskoz** apaindurik zeuden. Patxi Zubizarreta

Suak, itsasoak, **arabeskoak**, guzti-guztiek hipnosia eragiten dute, introspekziorako biderik ederrena eskaintzen digute. Bernardo Atxaga

Klaustroko patioa lorategi bat da, biziki ongi zaindua, ezpel inausiek hamazazpigarren mendeko **arabesko** zoragarri horiek denak osatzen dituztela. Koldo Izagirre

Bere eskuineko eskua **arabeskoak** eginez zerutik jaisten ikusi nuen, tiroak jotako hegaztia bezala, espiralean, eta non pausatu ez zekiela geratu zitzaion, zintzilik, hilik eta zurbil. Joxean Agirre

Marmol beltzezko monolitoak altxatzen ziren animalia eta landare figura ezberdin eta arraroenekin landuriko kapitel paregabeetaraino; goian, ganga handiaren ilunantzean, trazeria eta **arabesko** nabarren urrearen mateak egiten zuen distira. Agustin Otsoa

Bapatean, saloiko koxka hutsak, barruko besaulkiaren litxak, txakurkumea terrazan zilipurdika, lorategiko kulunka eta xuxurla guztiak bihurtu ziren kurba eta **arabeskoen** antzekoak, hustasun osoko erdigune baten inguruan loretan. Anton Garikano

Hormak tapizez estaliak zeuden, eta era askotako armarriez apainduak; margolan modernoak ere asko zeuden, bizitasunez beteak, **arabeskozko** marko urre-kolore aberatsetan ipiniak. Koro Navarro

2 irud/hed

Aparra zeriola hitz egin zuen, eskuaz **arabeskoak** egin eta hatz erakuslea altxatuz. Joseba Sarrionandia

---

arabiar *(ETCn **17.121** agerraldi)* **1** *izlag/iz* Arabiakoa, Arabiari dagokiona; Arabiako biztanlea. ik **arabe**.

Alfabeto hori **arabiarra** da. Edorta Jimenez

Jatorrizko **arabiar** testuak ez dara-ma inolako idazpururik, baina egileak bere ikasleari egindako gutun batean, "sarrera" izena ematen dio. Xabier Kintana

Kanpoaldean, hazitarako zaldi **arabiar** bat eta bi morroi leial daude zain, berari muga zeharkatzen laguntzeko prest; eta beste aldean askatasuna baino ez. Lopez de Arana

- **Arabiarren** ohitura duzu. Javi Cillero

Barbarotasun **arabiar** peto-petoz, laurdenkatu egiten zituen, gazitu eta soto batean kontserbatzeko. Juan Garzia

Blufildarrak kalean: beltzak, mestizoak, zuriak, txinoak, **arabiarrak**, indioak; Indiakoak zein bertakoak. Joseba Sarrionandia

Alferrak **arabiarrenak** bezalako almendra-begiak zituen, ile-kiribil beltz eta leunak, gizenkorra zen eta zintzilikarioak eta belarritakoak eraman zalea oso. Fernando Rey

Mairuen izen hori nondik datorren jakiten erraza ez bada ere, komertziante **arabiarrek** garai batean han beren dendak izan zituztelako izan daitekeela pentsatzen da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arabiarrak, izuaz ikaraturik, elkarri begira ari ziren. Josu Zabaleta

Baziren, azkenik, afgano azal-ilunak, **arabiar** ederrak, arraza semitikoen eite antzinakoari eusten ziotenak, eta turkoman begi-zabalak, betazal gabeak ziruditenak. Karlos Zabala

Nik ez nuen **arabiar** hizkuntza ulertzen, baina zerbait gertatzen zela sumatzen nuen. Juan Kruz Igerabide

Arabiarren artean ibili gintuan, Bagdagen familia **arabiar** baten gonbidatu izan gintuan. Xabier Olarra

Esaera **arabiarren** bat-edo da; asko eta asko izan ohi direnez. Mirentxu Larrañaga

Gorpuaren irudia Loiolako Ignaziok jasoko du geroago; baina izatez, S. Frantzisko baino lehenagokoa da, Basamortuko Gurasoengan aurkitzen baita, eta baita autore **arabiarrengan** ere, Al Ghazalirengan esaterako. Askoren artean

Ezinbesteko erreferentzia bihurtu da; ez herri **arabiarretan** bakarrik, mundu osoan baizik. Txema Ramirez de la Piscina

Kartagon, latinaren ondoan iraun zuen puniko edo fenizierak (**arabiarren** inbasioan oraindik bazegoen), eta Kartagoko lurraldeetan numida ere hitz egin zelakoan gaude. Isabel Arrigain

Kronikek diote erabili ziren lehenengo DIUak izan zirela **arabiarrek** gamelu emeei umetokian jartzen zizkieten harri biribil eta landuak, basamortuko zeharkaldi luzeetan ernari jar ez zitezen -gamelu arrengandik, noski-. Luis Elberdin

Zera pentsatu nuen, Edgarrek **arabiar** guztiak uxatu bazituen, errazkiago eman ahal izango zidala lana. Joxan Elosegi

Bere ondoan, ezkerrean, mutil gazte **arabiar** bat ageri da, Abdelaziz. Agurtzane Juanena

Han zituen **arabiar** tropak desegin, beste errege batzuek lagunduz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Agurearen janzkera arraroa zela ohartu zen mutila: **arabiarra** ematen zuen. Xabier Aranburu

Saharan bizi nintzenean, **arabiarrek**, gauean gure suen inguruan azaldurik urrutiko mehatxuen berri ematen baziguten, basamortua bilbatu, eta zentzu bat hartzen zuen. Josu Zabaleta

Geroago, bitartekarien artean garrantzi handikoak filosofo **arabiarrak** izan ziren. Askoren artean

2 *alfabeto arabiar*

Turkia mendebaldeko zibilizazioan integratzearren, erreforma sakonak egin zituen: **alfabeto arabiarraren** ordez alfabeto latinoa ezarri zuen. Berria - Mundua

3 *arabiar alfabeto* *(corpusean ez dago; ETCn **67** agerraldi)*

Arabiar alfabetoa Asia eta Afrikako hainbat hizkuntzatan (adibidez, arabiera, persiera eta urdua) erabilitako idazkera da. ETC-entziklopedia

Errusieraz egiten den bezala, kirgizera ere alfabeto zirilikoa erabiliz idazten da, Txinan bizi diren kirgizistandarrek **arabiar alfabetoa** erabiltzen duten arren. ETC-prentsa

Tamalez, testuak amazigeraz egon arren, **arabiar alfabetoa** erabili behar dugu oraindik ere. ETC-prentsa

Hauetan, ikasleei **arabiar alfabetoa** erakusten zaie, Afrika Beltzeko edo Latinoamerikako dantzak ikasten dituzte edo ijitoek flamenkoa ezagutzeko aukera ematen diete. ETC-prentsa

Kurmanjiarrek osatzen dute gehiengoa, beraz, zaila litzateke hogei milioi lagunek **arabiar alfabetoa** ikastea. ETC-prentsa

Espraiz orbanduta ageri dira **arabiar alfabetodun** seinaleak errepide bazterretan. ETC-prentsa

Soraniera, berriz, **arabiar alfabetoz** idazten da, eta Iraken eta Iranen hitz egiten da. ETC-prentsa

Arabiar alfabetoaren hamargarren letra, 88 zenbaki atomikoa duen elementu kimikoaren ikur laburtua, Fiji Uharteetako Errepublikaren eskualde bat, euskal poeta onenaren siglak, baina, hala ere, gurutzegrametan huts egin ez dezakeen jainko egiptoarra. ETC-prentsa

Zergatik otomandar turkiarrek abandonatu zuten **arabiar alfabetoa** 1928an? ETC-literatura, saiakera

Zirilikotik eta **arabiar alfabetotik** transkribatzeko oinarri batzuk ezarri ziren, eta Txinako, Indiako eta beste hainbat tokitako izenekin nola jokatu erabaki. ETC-literatura, saiakera

4 *arabiar azoka* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Arabiar azokak inguru desberdinetara egokitzen dira. Horrela, badaude hirikoak eta nekazal ingurukoak. Espazio horietan pertsonek behar dituzten produktu eta lanbide guztiak aurkitzen dituzte: janaria, espeziak, arropa, eguneroko produktuak, abereak, artisauak... ETC-entziklopedia

Arabiar azoka batek hartu du horren tokia, Gasteizko jaietako egitarauak aurten aurkeztu duen berritasun ikusgarrienetako bat izanik. ETC-prentsa

Newsgaming talde uruguaiarrak egin duen September 12th, A Toy World proiektuan, **arabiar azoka** batean dauden zibilen artean dauden balizko" terroristak" bonbardatu behar dira. ETC-prentsa

Dena den, egunean zenbaitetan ikusmenak eta entzumenak bat egiten dute **arabiar azokak** eskaintzen duenaz gozatu ahal izateko. ETC-prentsa

5 *arabiar basoilo* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arabiar basoilo, Ardeotis arabs. ETC-entziklopedia

6 *arabiar desertu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Eufrates ibaiaren mendebaldean, Arabiako basamortua **Arabiar desertuaren** iparraldean eta Taurus mendilerroaren hegoaldean kokatzen den eskualdea da. ETC-entziklopedia

7 *arabiar iraultza* *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Arabiar Iraultza Otomandar Inperioaren aurkako matxinada bat izan zen, Siriatik Yemeneraino zabaltzen zen estatu arabiar bat sortzea helburu zuena. ETC-entziklopedia

Arabiar iraultza demokratiko hau XXI. mendeko lehen iraultza demokratiko eta laikoa kontsideratzen da. ETC-entziklopedia

Mohamed Buaziziren martirioa geratuko da ziur aski **Arabiar Iraultzaren** pizgailu gisa. ETC-prentsa

Horrez gain, **arabiar iraultza** oraindik bero dagoenean, zonalde horretan beste borroka bat hasteak guztiontzat oso ondorio larriak ekar ditzake. ETC-prentsa

Ospe handia bereganatu zuen 1916-1918 bitarteko **Arabiar Iraultzan** Erresuma Batuko armadako kide gisa egindako balentriengatik. ETC-prentsa

Agerian utziz iraultzak ez zirela arabiarrak izan -edo ez soilik **arabiar iraultzak** bederen-, aldi berean beste hainbeste iraultza izan zirela. ETC-prentsa

Itxaropenez piztu ziren iraultzak, hogeitaka urte lehenago Europa ekialdean gertatutakoarekin alderatu zuten hasiera hartan, baina laster ez atzera ez aurrera gelditu ziren **arabiar iraultza** deitu zitzaien fenomeno haiek. ETC-prentsa

Norantz doa **arabiar iraultza** ? ETC-prentsa

8 *arabiar kafe* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

"Ba al zenekien munduan hobekien kontserbatutako erromatar monumentuak Libian daudela?", dio gizonak, **arabiar kafe** katilu bat eskuan duela. ETC-prentsa

9 *arabiar kaligrafia* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Korana arabiar alfabetoaz idatzita dago. **Arabiar kaligrafia** artetzat hartzen da: Islam sunitak izaki biziak irudikatzea debekatzen duenez, islamdar arkitekturak Koranaren eder apaindutako bersetak erabiltzen ditu meskita eta jauregietan. ETC-entziklopedia

[...] Kairo, arabiarren eta juduen arteko ika-mikak, Jomeini Ayatolah, arma-trafikoa, **arabiar kaligrafia** , atentatu suizidak, jaka belzdun judu bizardunak... ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *arabiar lehoinabar* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arabiar lehoinabarra ("Panthera pardus nimr") iraute egoera oso larrian dagoen lehoinabar azpiespezie bat da. ETC-entziklopedia

11 *arabiar mundu*

Maskhadov bere ordezkari izendatu zuen **arabiar munduan** eta Afganistango talibanekin egon zen. Berria - Mundua

" **Arabiar munduan** , adibidez, emakumeen eskubideen aldeko mugimendu anitz izan dira urteetan. Berria - Euskal Herria

Saharaz hegoaldeko Afrikak, **arabiar munduak** , Erdialdeko Asiak eta Asiako Hegoaldeko parte batek definitzen dituzte munduko ekonomiaren periferia horren gaur egungo mugak. Koro Navarro

Ez zuen batere antzik beste institutukoarekin; **arabiar mundukoarekin** , alegia. Jon Muñoz

Erromatar munduan, astindua Palestinatik Galiaraino sentitu zen; **arabiar munduan** Ferganatik Andaluziaraino. Iñaki Mendiguren

12 *arabiar orix* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arabiar orix ("Oryx leucoryx") Oryx generoko animalia da. Artiodaktiloen barruko Hippotraginae azpifamilia eta Bovidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

13 ***arabiar otso*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arabiar otsoa ("Canis lupus arabs") Ekialde Hurbilean bizi den tamaina txikiko otso azpiespezie bat da. ETC-entziklopedia

14 ***arabiar sukaldaritza*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Bere izena, Halawe edo Halawagatik jasotzen du, Raymond Smith Duganek oso gogoko zuen **arabiar sukaldaritzako** plater bat. ETC-entziklopedia

15 ***arabiar tuntun*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arabiar tuntun, "Prunella fagani". ETC-entziklopedia

16 ***arabiar txinbo*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arabiar txinbo, "Sylvia leucomelaena". ETC-entziklopedia

17 ***arabiar zaldi*** *(corpusean ez dago; ETCn **73** agerraldi)*

Shamil **arabiar zaldi** zuri baten gainean zihoan, etxera hurbildu ahala zaldiaren hedeetatik pozez tiraka. ETC-literatura, saiakera

Gero behin eta berriro **arabiar zaldiekin** gurutzatua izan zen egungo itxura hartu arte. ETC-entziklopedia

Albania Otomandar Inperioaren mende egondako denboran bertako poniak erruz gurutzatu zituzten inbaditzaileen **arabiar zaldiekin**. ETC-entziklopedia

Arravani zaldi arrazaren jatorrian erromatar zaldien, Egiptoko **arabiar zaldien**, Medernen, Pindoko ponien zein Turkiako **arabiar zaldien** arteko gurutzaketak daude. ETC-entziklopedia

Arrrazaren osaketan **arabiar zaldia** dago eta baita odol garbiko zaldiekiko zenbait guratzaketa. ETC-entziklopedia

18 ***arabiar zenbaki*** *pl*

Letra zirilikoen ondoren **arabiar zenbakiak**, eta marratxo bat bakarrik bi zenbakien arteko bizitza osoa laburbiltzeko, marratxo hori bizitzaren errepresentazio nahikoa balitz bezala. Joseba Sarrionandia

19 ***arabiar zifra*** *pl*

Orrialdeen goiko angeluan **arabiar zifrak** zekartzan. Juan Garzia

Eta kristauek arabiarren bitartez ezagutu zituztenez zifrak, '**arabiar zifrak**" deitu zieten, eta zeroa arabiar asmakizun bat zela esan zuten. Jon Muñoz

20 ***goma arabiar***

Goma arabiarra baizik ez da, lagunen mandatu bat. Aingeru Epaltza

Burdin tanogalatoz, **goma** arabiarrez eta urez osatutako konposatu bat. Xabier Olarra

21 ***hindu-arabiar zenbaki sistema*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Antzinako Indiako matematikariek garatu zuten **hindu-arabiar zenbaki sistematik** eratorriak dira; sistema horretan, digituen sekuentzia bat (adibidez: 975) zenbaki bakartzat irakurtzen da. ETC-entziklopedia

Hindu-arabiar zenbaki sistema Europan sartu zuen eta berau erabiltzeko bideak jarri zituen XIII. mendeko "Liber Abaci" liburuaren bitartez. ETC-entziklopedia

22 ***hizkuntza arabiar*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Hortaz, kabiliarrak eta beste berbereak ez dira batere ziur tamazigtha legez bilakatuko den hizkuntza ofizial, zeren eta estatutu hau ukatzen baitio 1990. urtean moldatu eta bozkatu egin zen **hizkuntza arabiarraren** orokorki zabaltzeko legeak. ETC-prentsa

Hemengo kasua bezalakoa da, berberea euskara da eta **hizkuntza arabiarra** gaztelera zein frantsesa. ETC-prentsa

Soilik gurutzatuak herrialdetik kanporatzean hasi ziren biztanle gehienak **hizkuntza arabiarra** eta fede musulmana hartzen; egungo palestinar gehienen arbasoak ziren. ETC-prentsa

Kaleko **hizkuntza arabiarra**, hip hopa eta melodia goxoaknahastuta sortzen dituzte doinuok, hainbat herrialdetara begira eta dub edo punkari ere helduz. ETC-prentsa

Min handia dario hiriari, min garratza protagonista mintzatzen den **hizkuntza arabiarrari**. ETC-prentsa

Ingelesa, txinera eta **hizkuntza arabiarrak** ditugun bezalaxe, jazza, indio hankabeltzen musika eta kantu tibetarrak ere baditugu. ETC-literatura, saiakera

Zehazki, marokoar jatorriko ikasleen beharrei erantzuteko bi ikastaro jarri dira abian: **hizkuntza arabiarra** eta kultura marokoarra, Eibar eta Gasteizen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nola jabetu euren etxeko **hizkuntza arabiarraz** (edo horrez) gain beste bat dela? ETC-zientzia, zuzenbidea

23 ***indiar-arabiar zenbaki sistema*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Lehenengoa izan bide zen zenbakiak **indiar-arabiar zenbaki-sistema** hamartarrean idazten zero biribil batez adieraziz. ETC-entziklopedia

24 ***kafe arabiar*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Zergatik ez eman 2002ko Gerraren Nobel sariak Bush eta Bin Ladeni? Bi Gerrako Jaunak Osloko udaletxean saria ospatzen, Tennesseeko whisky eta **kafe arabiarrarekin**. ETC-prentsa

25 ***mundu arabiar***

Bigarrenik, Arafatek beste zeinahi lider palestinarrek baino hobeto ulertu du **mundu arabiarreko** nahiz nazioarteko egoera eta horiei nola aurre egin, palestinarrak oso baldintza txarretan zeudelarik. Berria - Mundua

Elkarren arteko liskarrak zituen lidergo batek palestinarren kausari kalte egingo ziola sinetsita, PANekin eta **mundu arabiarreko** gobernuekin harreman onak izaten saiatu zen Jassin. Berria - Mundua

Teoria batzuen arabera, gure espeziea leku horietan sortu zuan, **mundu arabiarraren** alde sakonetan, denboraren hasieran, herriak, leinuak eta zibilizazioak sortu baino lehen. Xabier Olarra

"2. saila: **mundu arabiarreko** matematika". Jon Muñoz

Mundu arabiarra gai nagusitzat hartuta, 4.500 metro koadro, 6.700 erakustoki eta 213 gonbidatu hartuko ditu azokak. Berria - Kultura

Mundu arabiarrak ere kezkarekin hartu du Ahmadinejad kontserbadorea nagusitu izana nagusiki arioa nahiz eta bestelako etniak ere badituen den auzoko herrialdean. Berria - Harian

26 ***orix arabiar*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Hiru espezie ditu Oryx generoak: Oryx gazella (orix arrunta), Oryx beisa (orix beisa) eta Oryx leucoryx (**orix arabiarra**). ETC-zientzia, zuzenbidea

27 ***sozialismo arabiar***

60ko hamarkadan, Nasser Egipton boterean zegoela, AEBek **sozialismo arabiarra** zapaltzeko bultzatu zuten Fahd. Berria - Harian

28 ***sukaldaritza arabiar*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hori jan baino lehen, beste ezer nahiago", esan zuen, haatik, **sukaldaritza arabiarraren** dohainekin hain seguru ez zegoen emakume batek. ETC-prentsa

Manhattango telefono-liburuan **sukaldaritza arabiarrean** espezializatutako jatetxe bat aurkitu nuen. ETC-literatura, saiakera

29 ***teila arabiar*** *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Teila arabiarra deitzen da ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Teilatua bi isurikoa izaten dute, eta **teila arabiarrak**. ETC-entziklopedia

Jauregiaren bolumena **teila arabiarrez** egindako lau isuriko estalki batez bururatzen da, zeinaren eskuarialde ertaineko zurezko egitura ondo kontserbatzen den. ETC-entziklopedia

Bi isurkiko estalkia du baserriak, zeramikazko **teila arabiarreko** bi faldoikoa; ez du gorputz irtenik, bi tximinia izan ezik. ETC-entziklopedia

Eraikinak neurri txikiko oin errektangeluarra du, altueran txiki samarra den oin bakarra eta, sarrera dagoen fatxadarekiko paralelo egindako isurialde bakarreko estalkia du, **teila arabiarrez** egindakoa. ETC-entziklopedia

Zeramikazko **teila arabiarrez** egindako bi isurkiko estalkia du eta ertzak harlanduzkoak. ETC-entziklopedia

30 *zaldi arabiar*

Baina berdin joan zitekeen **zaldi arabiar** apain baten gainean, gizonaren itxurari erreparatuz gero. Joan Mari Irigoien

Kanpoaldean, hazitarako **zaldi arabiar** bat eta bi morroi leial daude zain, berari muga zeharkatzen laguntzeko prest; eta beste aldean askatasuna baino ez. Lopez de Arana

Eta, bakearen eta gerlaren iritzi haren ondotik, xehero baino xeheroago mintzatu zitzaigun aita errege-infanten ezkontzaz, aipatzen zituelarik, batean, honako honen beztimenda, urrezko brodatuz josia; bertzean, horrako horren **zaldi arabiarrak** eta karroza, zilarrezko apaingarriz eta bertzelako ornamentuz betea. Joan Mari Irigoien

Ahmeten etxe aurrera odol garbiko **zaldi arabiar** eder bat ailegatu zela ikasi zuten lehenbizikoak bere herrixkako biztanleak izan ziren. Fernando Rey

31 *zenbaki arabiar* *pl*

1299an, Florentzian, lege bat atera zuten bankuetan-eta **zenbaki arabiarren** erabilera debekatuz. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arabiar bat** (16); **arabiar batek** (7); **arabiar batzuek** (5); **arabiar demokratikoa** (6); **arabiar demokratikoaren** (6); **arabiar demokratikoko** (13); **arabiar demokratikoko presidente** (5); **arabiar emirerri** (27); **arabiar emirerri batuak** (10); **arabiar emirerri batuetan** (10); **arabiar emirrerri** (13); **arabiar emirrerri batuak** (5); **arabiar guztiak** (7); **arabiar irudikapen** (6); **arabiar irudikapen garaikideak** (6); **arabiar jatorriko** (5); **arabiar matematikari** (6); **arabiar mundua** (9); **arabiar munduan** (8); **arabiar munduaren** (7); **errepublika arabiar** (30); **errepublika arabiar demokratikoa** (6); **errepublika arabiar demokratikoaren** (6); **errepublika arabiar demokratikoko** (13); **herrialde arabiar** (17); **saharako errepublika arabiar** (27); **saudi arabiar** (5)
>
> **arabiarrak desarmatzeko** (5); **herrialde arabiarrak** (6); **kate arabiarrak** (5); **liga arabiarrak** (30); **milizia arabiarrak** (21); **telebista arabiarrak** (7); **telebista kate arabiarrak** (5)

---

arabiartu, arabiar(tu), arabiartzen du *ad* arabiar bihurtu.

Aurreko errejimenak eremu kurduak bortxaz **arabiartu** zituen, eta kurduok politika horren arrastoak ezabatu eta eskualdera dozenaka mila familia kurduen itzulera ziurtatu nahi ditugu. Berria - Mundua

Halarik ere, kurduek diote Husseinek populazio aldaketa bortxatuak egin zituela eta gune kurduak **"arabiartu"**. Berria - Mundua

Kurdistanen independentzia, Saddam Hussein Irakeko presidente ohiaren epaiketa ordezkari kurduak izango lituzkeen nazioarteko auzitegi baten esku uztea, eta Husseini egotzitako akusazioei "indarrez egindako **arabiartzea**" eranstea. Berria - Mundua

---

arabiartze *iz* arabiar bihurtzea.

Testu honetan azaldutako eskariak honakoak dira: Kurdistanen independentzia, Saddam Hussein Irakeko presidente ohiaren epaiketa ordezkari kurduak izango lituzkeen nazioarteko auzitegi baten esku uztea, eta Husseini egotzitako akusazioei "indarrez egindako **arabiartzea**" eranstea. Berria - Mundua

Saddam Husseinen erregimenak kurduak hiritik kanporatu zituen, eta arabiarrak ezarri, **arabiartze** estrategiaren barnean. Berria - Mundua

---

arabiarzale *izond* arabiarren aldekoa.

Amos Oz, judutar **arabiarzaletzat** dute Israelen, traidore handitzat alegia. Berria - Kultura

---

arabiera 1 *iz* arabiar hizkuntza semitikoa, arabiarren hizkuntza.

Basamortuan jaioa, gizatalde txiki batek mintzatua, hizkuntza gazte-gaztea zen **arabiera**. Jon Muñoz

Nik banekien guk kurduera mintzatzen genuela, irakiarrek **arabiera**, eta gainerakoek ingelesa. Juan Kruz Igerabide

Jainkoari esker bazakiten **arabiera** eta, beraz, mintzatzen ziren bahitzaileekin. Herria

Israelen, esaterako, israeldarrentzat zein palestinarrentzat identitatea markatzeko ezaugarri garrantzitsuak dira hizkuntzak; hebreera hobesten dute israeldarrek, eta **arabiera** palestinarrek. Berria - Euskal Herria

Arabiera eta kurdua dira bi hizkuntza ofizialak eta gurasoek eskoletan seme-alabei beren ama hizkuntza irakasteko eskubidea dute. Berria - Harian

Proban jarri nahi nuen berriro nire **arabiera** kaxkarra, Fezen tankera hartan huts egin eta eskura platano bat ekarri zidana. Bernardo Atxaga

Mundu siriakoan Aristotelesen filosofiak eta zientziak oraindik Ekialdeko pentsalariak estimulatzen zituzten **arabieraren** bidez. Iñaki Mendiguren

Avicena sendagile eta filosofo pertsiarraren lana, esate baterako, **arabieratik** latinera itzuli zuten. Patxi Zubizarreta

Montzoi hitza **arabieratik** omen dator: *mausin* omen, urtaro haizea izango litzatekeena. Pello Zabala

Grezieraz idatzita zeuden Alexandriara iritsitako liburu gehienak; aldiz, Bagdadera IX. mendean ekarritako liburu bat bera ere ez zen **arabieraz** idatzia. Jon Muñoz

Ibrahim zen haren aitaren izena, hala baita **arabieraz** Abrahamen izena. Jon Muñoz

Gizonak hirurogei bat urte zituen, itxura ona, eta, batez ere, txukun egiten zuen **arabieraz**. Juan Kruz Igerabide

Arabieraz mintzatzen ziren denak herrialde hartan. Xabier Aranburu

Batzuetan frantsesez eta besteetan **arabieraz** kantatzen du, eta guztiaren gainetik dago bere boza. Berria - Kultura

Hebreeraz, **arabieraz** bezalatsu, aditzak aipatzeko, latinez orainaldiko lehen pertsona, gaztelaniaz infinitiboa edo euskaraz partizipioa bezala, iraganeko hirugarren pertsona singularra erabiltzen da, era horretan aditzaren erroa, eskuarki hiru letrakoa, ondoenik agertzen delako. Xabier Kintana

Azkenean, Mendebaldeko kristauak Aristoteles ulertzeko moduan egon zirenean, ingurabide batez eskuratu zuten, **arabierazko** itzulpenen bidez. Iñaki Mendiguren

Preso irakiarrei Ameriketako Estatu Batuetako Armadak jasanarazitako tortura eta tratu txarrak "ekintza nazkagarritzat" jo zituen atzo George Bush AEBetako presidenteak **arabierazko** telebistetan zabalduriko elkarrizketan. Berria - Mundua

Seme; **arabierazko** ikasgai bat ez da kezkatzekoa; eta ondo dago beste hizkuntza bat ikastea. Juan Kruz Igerabide

Berehala itzuli zuten **arabierara** idazlan hura, eta bai ospetsu bihurtu ere, *Sindhind* izenez. Jon Muñoz

2 *arabiera klasiko*

Mendebete baino lehen ebatzi ahal izan zen zein hizkuntza zen: guaraniaren dialekto samoiedo-lituaniar bat, **arabiera klasikoaren** zenbait molde zerabiltzana. Juan Garzia

3 *judu-arabiera* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ia bi mila urtez hebreera idazteko erabili zuten israeldarrek eta beste mintzaira batzuk (judu-espainola, judu-alemana, **judu-arabiera** eta abar), hitz egiteko. ETC-prentsa

Horietan nabarmenena egun yiddisha da, alemanean oinarrituta, halaber, ladinoz (gaztelanian oinarrituta) eta **judu-arabieraz** ere mintzo dira. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arabieraz edo** (3); **arabieraz ematen** (3); **arabieraz hitz** (3); **arabieraz idatzitako** (8); **arabieraz mintzatzen** (5); **arabieraz mintzo** (5)

---

arabiko *izond* Arabiari edo Arabiako hizkuntzari dagokiona.

Hamabosgarren mendearen bukaeran, Zibilizazio **Arabiko** musulmanak artean bazuen atlantiar itsasertza Afrikan Gibraltarreko itsasartetik Senegaleraino. Iñaki Mendiguren

Mende bat baino gehixeagoan, mundu islamikoa, non baitzeuden batuta Gizarte Iranikoa eta **Arabikoa**, gainditua ez ezik, erabat inguratua ere geratu zen. Iñaki

Mendiguren

Ba al zegoen arrazoirik zalantzan jartzeko azpian bizirik zetzan kultura **arabikoaren** indarra, lehentxeago edo geroxeago, sendotu egingo zela askoz arrotzagoa zen Mendebaldeko kulturaren eraginaren aurka? Iñaki Mendiguren

Hizkuntza eta idazkera **arabikoaren** ordez greziera ezarri baitzuen arabiar kaliferrian erromatar izandako probintzietan. Iñaki Mendiguren

Gizartearen ondorengo birrantolaketa [...] Gizarte Siriakotik heredatu zuten haren ondorengo musulman iraniko eta **arabikoek**, eta gero burumakur zegoen Kristandade Ortodoxoari ezarri zioten osmanliar inperiogile musulman iranikoek. Iñaki Mendiguren

Mundu **arabikoaren** bihotzarentzat geratzen zen mehatxu-hondarra ez zetorren Mendebaldeko botereetatik, sionistengandik baizik. Iñaki Mendiguren

---

arabisagar *(orobat **arabi sagar**) iz* pomeloa.

Denetarik bada: irrisa, artoa, dutea (horiek denak bilduak) liranja, mandarina eta **arabisagar** lodi batzu, basartoa (sorgho) eta baratzekari mota guzietarik. Herria

2002ko sagardoak zitrikoen (**arabi sagarraren** eta limoiaren) aroma izan zuen nabarmen. Berria - Euskal Herria

---

arabismo *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi) iz* arabiar izatearen nolakotasuna; arabiar kultura.

"Magrebeko tirano guztiek legez, Gaddafik Libiako identitate hutsa ukatzen duen **arabismoari** eutsi zion", jarraitu zuen. ETC-literatura, saiakera

Suhail Idris hil da, "modernizazioaren eta **arabismoaren** poeta" . ETC-prentsa

Arazoa da NTCk eutsi egiten diola antzinako, ohiko **arabismo** -islamismoari. ETC-prentsa

Egiptok bultzatutako politika arabistak harrapatuta, FLN **arabismo** politiko eta ideologikoan murgildu zen, eta imazighenen kultura adierazpenak zapaldu zituen. ETC-prentsa

Lerro gutxi batzuetan **arabismoaren**, islamaren eta Ekialde Hurbileko gatazkaren berri ematea ezinezkoa da, baina laburrean: ekintza islamistak -nola deitu ere ez dakit- munduko ordenaren (zaharra zein berriaren) fruitu dira. ETC-prentsa

Ekialde Hurbila bolborategi bat da, **arabismoa** labirinto bat da, Siria liztor habia bat da, eta eztabaida hori beharrezkoa da. ETC-prentsa

Etorkizunean pan-**arabismo** gisa ezagutuko denaren lehen pausoak emango dira fase honetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arabista *iz/izond* arabiar kultura eta hizkuntza estudiatzen dituen pertsona.

Gema Martin Muñoz **arabista** espainiarrak koordinatuta, eztabaida foroak eta hitzaldiak eta zenbait arte erakuske-ta ere egiten ari dira aste honetan. Berria - Mundua

Sentipen bera izango du ikusleak Orientalista eta **Arabista** koadroen aurrean paratu orduko, konposizio eta kolorea zehazteko irizpide berak erabili baitzituen Kitajek hiru lan horietan. Berria - Kultura

---

arada *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* oihartzuna. ik **aranots**.

Marciaren ahotsa sorra zen, eta beraz, Buckyk kabina kanpoan zutik entzun zezakeen guztia intsektuen burrunba eta **arada** zen, eta gogoa Newarkeko arrats itogarri eta sargori haietara joan zitzaion, Steinberg doktorearekin atzealdeko portxean mertxika bikain hura jaten eserita zegoenekoetara. ETC-literatura, saiakera

San Joan Gurutzekoaren **arada** sor bat sumatzen da 89. zenbakiko hasieran. ETC-literatura, saiakera

Testuaren alboan agertzen da "sormen" horren **arada** lehendabizikoan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kazkabarra beltz-beltza heldu eta azantza badakizu, txalaparta bezala, tatatata, tatata... ta **arada** hautematen omen zen, **arada**. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aragoar ik **aragoiar**.

---

aragoiar *(orobat **aragoitar**, **aragoar** eta **aragondar** g.er.)* **1** *iz* Aragoiko biztanlea.

Bolada kaskar horrek ekarritako puntu premiarekin zelairatuko dira gaur **aragoiarrak** Sadarren, baina Osasunak ere ezin du kale egin Sadarren. Berria - Kirola

Elkarrizketaren martxaren arabera, han ikaragarrizko gorroto-giroa zegoela ikusten zen; nafarrek, baskongadoek, arabarrek, **aragoiarrek** eta gaztelauek hiltzerainoko gorrotoa zioten elkarri. Koro Navarro

Luis "Hutin" (liskarzalea) Nafarroako errege zela, XIV. mende hasieran, **aragoiar** eta nafarren arteko borroka latza gertatu zen Zangoza inguruan. Martin Anso

Aragoiarrek 9 gol egin zizkieten donostiarrei, eta hauek bat ere ez. Berria - Kirola

Corpuseko prozesioa Zangozako Santa Maria parrokiatik atera eta berehala, Soseko **aragoiar** bat bandera ustekabean harrapatu eta ihes egiten saiatu zen, zaldiz, atzean zangozarrak zituela. Martin Anso

Eta ez uste izan zuberotarrak **aragoiarren** bila izan direla jota hauek emateko, nahiz ez zen izango lotsagarrikoa. Berria - Kultura

"Aragoiarren erabakia errespetatzeko borondatea" erakutsi zuen Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako presidenteak arazo honen inguruan. Berria - Euskal Herria

UPNko senatari Jose Cruz Perez Lapazaran ados agertu zen Sanzen hitzekin; **"aragoiarrena** bezala, nafarron borondatea ere errespetatu behar da", azpimarratu zuen. Berria - Euskal Herria

2 *izlag/izond* Aragoikoa, Aragoiri dagokiona.

Hizlari: Jean louis Laduche Azkaingo auzapeza, bai eta katalandar, bretoin, alsaziar eta **aragoiar** ordezkari baztu. Herria

Martinek irabazi zuen, eta Brionesen lagun bat, bere soldata osoa galdu zuen **aragoiar** teniente bat, mendeku hartzeko, euskaldunez gaizki esaka hasi zen. Koro Navarro

Iruñea berreskuratu berritik zuzenean etorrita, bat egiteko puntuan egon zen Zangoza errendiarazi berri zuen **aragoiar** konpainia batekin. Aingeru Epaltza

Fernando **aragoiar** azpi-sugearen ordez -infernuko garretan kiskaliko da agian! Aingeru Epaltza

'ali ala' delakoak 'alifara' **aragoiarraren** sorrera arabiar berbera du, hasieran tratua ixtekoan egindako gonbitte edo otordutxo izatetik, gero lagunarteko edozein otordu izendatzera iragoa. Patziku Perurena

Ildo beretik, nafar-**aragoiar** erromantzeen garapena ezin da adierazi euskararen erreferentziak kontuan izan gabe. Berria - Kultura

---

aragoiera *iz* gazteleraren aldaera, Aragoin mintzatzen dena.

Erromatarrak hemen egon zirenaz geroztik, latinetik atera mintzairak, erromantzeak deituak direnak (gaskoia, biarnesa, katalana, **aragoiera**, gaztelera, frantsesa) euskarari nagusitu ziren. Herria

Nola deitu beharko zaio? Tortosakoari katalanera, Matarranyakoari **aragoiera** eta Vinaroskoari valentziera? Berria - Mundua

Erdi Arotik aurrera zenbait gudu galdu ez balira, Muretekoa adibidez, Kataluniak, Aragoik eta Okzitaniak estatu bat osatuko zuketen agian, katalanerak, **aragoierak** eta okzitanierak antzeko bilakaera izango zuketen, azkenean hizkuntza bakar batean urtuko ziratekeen beharbada. Mikel Hernandez Abaitua

Bi hilean behin ateratzen da argitara; galizieraz, asturieraz, euskaraz, **aragoieraz**, okzitanieraz eta katalanez idatzita egoten da. Berria - Euskal Herria

Partituraz gain, abesti guztiek aurkezpen bat daukate **aragoieraz**, okzitanieraz, katalanez eta euskaraz, eta diskografia bat ere gehitu dute, abesti bakoitza non topatu

daitekeen jakiteko. Berria - Kultura

---

aragoitar ik **aragoiar**.

---

aragondar ik **aragoiar**.

---

aragonita ik **aragonito**.

---

aragonito *(orobat **aragonita**) iz* kaltzio karbonatoaren aldaera, gorria, zuria edo koloregabea, dirdira beirakara duena.

Bere poltsikoak arakatzetik labana bat atera zen, **aragonitoz** egindako zigarreta-kaxa bat, bi kondoi eta liburuxka bat: Nola mintzatu eta elkarrizketatu. Anton Garikano

Utrikuluan eta sakuluan, gelatina gogor batean sarturik daude ile-zelulak; gelatinak baditu kaltzita- edo **aragonita** -kristalak (kaltzio karbonato edo klarionaren kristal-formak): otolitoak. Irene Aldasoro

---

araiz[1] *adlag* noski, jakina.

Jakin gabe zer zen hura, **araiz**. Jose Angel Irigaray

Konprenitzen duzu **araiz** lan horren garrantzi berezia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bihar ez, **araiz**. Txillardegi

---

araiz[2] *adlag* oxala.

Araiz, iparralde huntan ere ukanen dugu haren entzuteko parada! Herria

Araiz, ikasiko ahal dute pertsona batzuek zakurrak bezala orduan xuxen izaten! Gotzon Garate

- Maite nauzu **araiz**? Itxaro Borda

---

araiztar *izlag/iz* Araizkoa, Araitzi dagokiona; Araizko biztanlea.

Txus Goikoetxea **araiztarrak**, Zigor Larredonda kataluniarrak eta Sebas Lasa antiguatarrak iragan marxoaren 15 etik diraute elikagairik irentsi gabe. Berria - Euskal Herria

---

arakai *iz* bere haragiaz baliatzeko gizentzen den aberea.

Hirulau (edo bosei) hilabete aurretik begia emana eduki du artzainak artaldean, akatsen bategatik haragitako bereiztua; nere ume denboran artantzu aharikoa, zikoroxta, alondoa eta holakoak izaten ziren endemas **arakaitako**. Patziku Perurena

---

arakaitz *iz* ebakiondoa, orbaina,

Oraindik igartzen zaio **arakaitza** ezkerreko izterrean. Gotzon Garate

Eskuineko masailezurretik leporaino luzatzen zitzaion **arakaitza** disimulatzeko, jendeak zioenez. Gotzon Garate

Begitarte guztia mozorrotua bezala dute: azala erabat urratua, bixikaz eta **arakaitzez** betea, sudurra itsuski zulatua, zainak etenak eta hezurrak erreak. Gotzon Garate

---

arakatu *(ETCn **7.759** agerraldi)*, araka(tu), arakatzen **1** du *ad* aztertu, miatu; eskuarki zerbaiten barnea miatu, bereziki bertan gorderik edo ezkutaturik egon daitekeen zerbaiten bila.

Labanek oihal-etxola guztia **arakatu** zuen, baina ez zuen ezer aurkitu. Elizen arteko biblia

Neurologoek beren arreta, beste alde baterako joera-aldaketa nagusitua zen orain: ahalmen indartuen nahiz jende dohaintsuen egiturak behar ziren **arakatu**, eta dohain horiek garunean zer oinarri duten aztertu. Xabier Olarra

Eskuan zeraman kapazu handian **arakatu** zuen mukizapi bat ateratzeko. Aingeru Epaltza

Bazterrak **arakatu** zituen beste behin, baina giltzaren arrastorik ez zen han. Joxemari Urteaga

Etxe osoa **arakatu** zuen, etxapetik hasi eta ganbararaino, armairu guztiak zabaldu zituen, altzari guztiak miatu. Josu Zabaleta

Jantziak **arakatu** zituzten, ohea miatu zuten, bazterretan eta komodan begiratu zuten, eta ez zuten ezer aurkitu. Jose Morales

Ohea miatu zuten zakar, burdia haztamuka aztertu zuten, maindireak **arakatu**. Karlos Zabala

Elementu meteorologiko jakin batzuen proportzioak erreparatu, neurtu, ikusi, **arakatu**, eta taxuz esan ahal izango dugu, nolako giroa, edo nolako eguraldia daukagun. Pello Zabala

Andreievek zoroetxeko biztanleen eta eguneroko bizitzako gorabeheren freskoa marrazten du, gizakiaren hondorik ilunenean **arakatuz**. Jose Morales

Hasieran herrialdeak hartu nituen oinarritzat; gero, eskualdeak; eta, hurrena, geografiako irizpideak bukatu zirenean, hildako soldaduen artean zegoen harremana **arakatu** nuen. Aritz Gorrotxategi

Nik agian pozik idatziko nuke saiakera bat, gai baten goiti-beheitiak argitu, bere sakontasunak **arakatu**, mamiak azaleratu. Xabier Mendiguren Elizegi

Kostari jarraituta, ekialdetik, Jaxartes ibairaino **arakatua** zuten; eta mendebaldetik, Albaniako ertzeraino. Iñaki Iñurrieta

Zenbat aldiz, ez gizakien argibidez, Espiritu Santuaren agerpenez baizik, ezagutu zituen urruti zeuden anaien egintzak, agerian jarri bihotzen ezkutukoak, **arakatu** kontzientziak! Askoren artean

Poltsan **arakaturik**, tabakoa atera eta, eskaini gabe, zigarro bat piztu zuen. Aingeru Epaltza

Arakatuko dizkio gibel eta sabelak baina ez du jango, ez behintzat, beste inor begira ez dagoela ziurtatu gaberik. Hasier Etxeberria

Nekez igartzen diegu lurrekoei eta kostata aurkitzen irispidean duguna ere. Nork, beraz, **arakatuko** ditu zerukoak? Elizen arteko biblia

Zein da ihes dabilen judu bat joango litzatekeen azkeneko zuloa, zein da judu baten bila **arakatuko** luketen azkeneko bazterra? Anjel Lertxundi

Gogoa **arakatuz** ez zuen zerbait gogoratu? Migel Angel Mintegi

Izan ere, Jaunak lur osoa **arakatzen** du bere begiz, zintzo direnak adoretzeko. Elizen arteko biblia

Amets hutsa da kanpotik barrurantz gizakia **arakatzen** ari dela ustea, **arakatzen** ari den arakatzailea gizakiaren barru-barrukoa delako beti, nahiz eta kanpoan jarri, nolabait,

bere burua **arakatzeko** . Jenaro Garate

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Dena arretaz **arakatu** , xehe-xehe aztertu, eta, auzirik korapilatsuenaren haria atzemanik, dena argitu, hori zuen bere lana. Jose Morales

Ongi **arakatuta** , gorazarrearen azpian juzgu ezabaketari bat ezkutatzen da: horiek esklabo eta morroien bertuteak dira, edo txinatarrenak. Joxe Azurmendi

Han zuen, hori bai, Nash 55a; goitik behera **arakatu** nuen: indio-txabola baten barruan zegoen, euritatik hosto-sabai soil batez babestua, aspaldian erabili gabea, bistan zen, urratua, zoldatua, baina ibiltzeko moduan oraindik. Joxe Austin Arrieta

Bulegoa goitik beheiti **arakatu** arren, ez diagu atzeman bertze deusen arrastorik inon. Aingeru Epaltza

Eguzkitarako betaurrekoen atzean babesturik **arakatu** dut, disimulu barik, jauzika urrutiratu den bere ipurdia. Eider Rodriguez

Gela begiradaz **arakaturik** , ohartu zen margolan guztiak ez zirela txorienak. Jose Morales

Pagliettak galdetu zidan ea zergatik nahi nuen juxtu Kerrna; nortasun-agiria eskatu, maltzur airez **arakatu** txartela, errejistro bat sinarazi, eta azkenean han utzi zuen nire eskuetan, gogoz kontra, liburukia. Juan Garzia

Aurki etsi nuen horretaz, neure gelazuloa arraz arra **arakaturik** , zeren aurreko urte haietan elikagai izan nituen eleberriak ihesaldi miragarriz beterik baitzeuden. Juan Garzia

Hotsik atera gabe jantzi nintzen; ispiluan neure buruari agur esan, eskailerak jaitsi, kale patxadatsua begi zorrotzez **arakatu** , eta kanpora irten nintzen. Juan Garzia

Gau mahaiko kaxoia **arakatu** zuen itsumustuan. Unai Iturriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arakatu ahal** (3); **arakatu arren** (6); **arakatu behar** (9); **arakatu beharko** (5); **arakatu bitartean** (4); **arakatu ditu** (9); **arakatu ditugu** (3); **arakatu dituzte** (5); **arakatu du** (10); **arakatu dut** (4); **arakatu dute** (4); **arakatu egin** (3); **arakatu eta gero** (3); **arakatu gabe** (5); **arakatu izan** (3); **arakatu nahi** (7); **arakatu ninduten** (3); **arakatu nituen** (4); **arakatu nuen** (10); **arakatu ondoren** (5); **arakatu zituen atzo** (3); **arakatu zituzten** (10); **arretaz arakatu** (3); **artean arakatu** (3); **aurpegia arakatu** (3); **barrua arakatu** (3); **berriak arakatu** (3); **egoitza arakatu** (5); **ere arakatu zuten** (3); **etxe arakatu** (4); **etxebizitza arakatu** (3); **goitik behera arakatu** (13); **guztia arakatu zuen** (3); **guztiak arakatu** (4); **ingurua arakatu** (4); **ondo arakatu** (4); **osoa arakatu zuen** (4); **poltsikoak arakatu** (3); **zehatz mehatz arakatu** (3)
>
> **arakatuz gero** (4); **guztiak arakatuz** (4)
>
> **sakonean arakatzea** (3)
>
> **arakatzeari ekin zion** (5)

---

arakatz *iz* andere mahatsaren familiako zuhaixka arantzatsua, ale berde-horiak ematen dituena*(Ribes uva-crispa)*.

Beherago, **arakatzek** odol-tanta gorriak isuri dituzte, eta andere-mahatsek, tinta beltzezko tantak. Itziar Otegi

---

arakatzaile **1** *izond* arakatzen duena.

Hau deseroso mugitu zen begi **arakatzaile** haien pean. Alberto Ladron Arana

Frau Streicherrek begirada **arakatzaile** bat bota zidan, deseroso sentiarazi ninduena. Alberto Ladron Arana

Baina joera "perspektibistaren" eta joera **"arakatzailearen"** arteko kontrakotasun hori gorabehera, badituzte zenbait puntu berdin: perspektibazko eraikuntza bat erregistratzeko modua asmatu izana gauza positibotzat hartzea, alde batetik, eta, bestetik, argazki-ikusleari zeharbidez baizik ez begiratzea, ustez aurretiazko jakintza bat duen zentzuan. Josu Zabaleta

· Harryk bukatu zuenean, beraiei zorrotz begira jarraitu zuen, **arakatzaile** . Iñaki Mendiguren

2 ***web arakatzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Etxeko bideratzaileen konfigurazioa atebidearen IP helbidea web nabigatzaile edo **web arakatzaile** batean idaztea da. ETC-entziklopedia

Add-on guraso-kontrol softwareak **web-arakatzaileak** edo Interneteko txat-aplikazioak behatzen dituzten API-a kontrolatzen du. ETC-entziklopedia

Bertsio horrek, une berean **web arakatzailea** eta fitxategi kudeatzailea fitxategi kudeatzaile den konqueror zekarren, aplikazioen arteko integrazioa helburu zuten beste teknologia berri askoren artean. ETC-entziklopedia

Software-ingeniaritzan, web aplikazioa (ingelesez "webapp") deitzen zaio erabiltzaileek **web arakatzaile** bat erabiliz urrutiko zerbitzari batean exekutatu dezaketen aplikazioari. ETC-entziklopedia

Aplikazioak Interneten daude eta horiek erabiltzeko behar den bakarra **web arakatzaile** bat da (Firefox, Internet Explorer...). ETC-prentsa

Badira urte batzuk eduki orokorrak dituzten atariek **web arakatzailea** lehenengo orria izateari utzi diotela; gaur egun, ia-ia guztiek bilatzaileren bat dute hasierako orri modura. ETC-prentsa

Alde batetik, web zerbitzaria, hau da, eskatzaile bati web orrialdeak ematen dizkion aplikazio bat, eskatzailea, **web arakatzailea** izaten da. ETC-prentsa

Web arakatzaile eta bilatzaileek nola lan egiten duten jakinda, erraz uler daiteke zergatik bilatzaileek batzuetan ez duten ondo ulertzen guk galdetutakoa. ETC-prentsa

Web-arakatzaileak sarri erabiltzen dira, eta erabiltzen diren hizkuntzetako batzuk HTML, JAVA, JavaScript, PERL eta Visual Basic dira, besteak beste. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arakatze *iz* aztertzea, miatzea; eskuarki zerbaiten barnea miatzea, bereziki bertan gorderik edo ezkutaturik egon daitekeen zerbaiten bila.

Espainian hauexek izan dira atxiloketak: Andaluzian 22 atxilotu egon dira eta beste bi erregistro; Madrilen 8 atxilotu eta **arakatze** bat. Berria - Gaiak

Itxuraz euskarak ez du joera ludikoetarako isuria inoiz nabarmendu, baina gure azaleko **arakatze** honek besterik erakutsi du: belaunaldiz belaunaldi iritsi zaizkigun atsotitzetatik hasi eta egungo olerkari abangoardistenen esperimentazioekin buka, umeen leloetatik eta publizisten esaldi biribiletatik igarorik. Iñaki Arranz

Iraganaren **arakatze** horretan, espiritu aske hori interesatzen zait. Berria - Kultura

Gazte ikasle batzuek, saiatu eta saiatu, azterketa eta ikastearen poderioz, **arakatze** eta erreparatze batzuen ondorioz, ilargiak baduela eraginik ile-moztea noiz egin eta ilea nola hazten den eta beste atera zutela. Pello Zabala

Beherago, **arakatzek** odol-tanta gorriak isuri dituzte, eta andere-mahatsek, tinta beltzezko tantak. Itziar Otegi

AZF taldearen mehatxuaren ondoren, **arakatze** sakona egin zuten, orotara 32.500 kilometro dituen trenbide sare osoan konpainiako 10.000 langile aritu ziren ikuskaketa egiten. Berria - Mundua

Preso palestinarrek eskatzen zutena zen, besteak beste, senideen bisitaldi gehiago lortzea, hauekin eragozpenik gabeko harremanak izatea, biluzte eta gorputz **arakatze** umiliagarriak gelditzea edota kartzela baldintzak hobetzea. Berria - Mundua

Eguneroko lanean eta hamabosteroko **arakatze** bikoitzean. Xabier Mendiguren Elizegi

Orotara, udaltzainak, Espainiako Poliziako kideak, guardia zibilak, suhiltzaileak eta babes zibileko kideak aritu ziren atzo hesitze eta **arakatze** lanetan. Berria - Euskal Herria

Arakatze -lanetan ari zela zauritu dute. Koro Navarro

Hurrengo bi egunetan euria egin zuen eta taldea bentan geratu zen, inguruetan **arakatze** -irtenaldi batzuk eginez tarteka. Koro Navarro

Ez neukan gogorik nire arima biluzteko edo barne-**arakatze** goibeletan murgiltzeko. Oskar Arana

---

araketa *iz* arakatzea, aztertzea, miatzea.

Gauez ere kartzelero da kartzeleroa, eta egunez bexalaxe egin diezazkioke kontaketak, **araketak** eta bururatzen zaizkion txakurkeria guztiak. Jokin Urain

1974ko urtarrilean kontrol eta **araketa** ugari egin zituen poliziak Ipar Euskal Herrian, eta baita atxiloketak ere. Jokin Urain

Galerian zehar kartzelero taldearen oinotsak sumatu baditu, eta ondorenean tribu-kidearen atea ireki dutela sumatzen badu, erne eta atezuan jarriko da euskal-kiowa presoa, badakielako **araketa** egitera joan zaizkiola, edo jipoitzeko aitzakiaren baten bila. Jokin Urain

Begiak bere **araketan** egiten dituen mugimenduak. Josu Zabaleta

Hogeita hamar bat kilometroko luzera eta hogei bat zabalera duen eskualde batean etxez etxe **araketak** egiten ari diren lurreko tropei, laguntza eta babesa ematen jarraitzen zieten, ordea, gerrako berrogeita hamar hegazkinek eta hirurogei helikopterok. Berria - Mundua

Altzari eta moketen gainan, esku arduratsu eta zilar batzuen lana nabari zen, poliziak hemengo **araketak** burututzat jotzen zituen seinale. Aingeru Epaltza

Besoak zabaldu zituen, polizien **araketetan** miatuek egin ohi duten bezala. **Araketa** zorrotzak ere egin zituzten urte hartako azken hilabeteetan Alcalan, Huescan-eta. Aitor Arana

Presoak erabat biluztu beharra eta gorputzaren **araketa** sakonak ez daitezen gehiago egin. Berria - Mundua

Bazen metodo bat, **araketa** sistematikorako plan astitsu eta antigoaleko bat. Juan Garzia

Hedabideei adierazitakoa bakarrik esan diete udaltzainei, identifikatu eta **araketa** prebentiboak egin behar dizkietela aurrekari penalak dituztenei edo armak eramateaz susmagarri diren guztiei. Berria - Euskal Herria

Araketa hegazkinek egindako argazkiak aztertu ondoren, bonbardatzeko agindua prest geratu zen. Edorta Jimenez

Etxe **araketa** hauek egiten ari zirelarik, Tsahaleko militarrek aurre egin zieten gerrillari palestinarrei eta gertatutako tirokaldi hauetatik batean hil zen 19 urteko palestinar gazte bat. Berria - Mundua

Bide kontrol edo etxe **araketetan** lapurtu ei zieten irakiarrei. Berria - Mundua

---

araknido *iz* armiarmaren klaseko animalia.

Arakneren izenetik dator, noski, **araknido** hitza, armiarmaren familiako animaliak izendatzeko erabiltzen dena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bioaniztasunaren eta **Araknidoen** Nazioarteko Biltzarra antolatu du aurten, Donostian. Berria - Kultura

---

araknoide *(corpusean ez dago; ETCn **96** agerraldi) iz* anatomian, hiru meningeetatik erdikoa; astronomian, Artizarreko azalean dagoen egitura, amaraun itxurakoa.

Kanpoan kokatutako geruza duramaterra da, barnekoa piamaterra, eta bi horien artekoa, **araknoidea**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tarteko meningea, dura materrari estuki lotuta dagoen geruza abaskularra da eta **araknoide** deitzen da bere kolageno-zuntz finak armiarma-sarea bezala kokatzen direlako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Anatomian Cisterna ambiens gorputz kailukararen esplenioaren eta garuntxoaren bitartean kokatzen den **araknoide** espazio zabalari esaten zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Garapenean **araknoidea** eta piamaterra entzefalo inguruko mesenkimatik datozenez, biei piaraknoide esaten zaie. ETC-zientzia, zuzenbidea

Muineko lesio gehienetan, duramadreak eta **araknoideak** ez dute lesiorik jasaten. ETC-zientzia, zuzenbidea

Odola garuneko zein konpartimentutan isurtzen den, parenkima barneko, **araknoidepeko** edo bentrikulu barneko hemorragiak gerta daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nerbio-sistema zentrala konektibozko hiru geruza berezi hauek gaineztatzen dute: piamaterra, **araknoidea** eta duramaterra. ETC-zientzia, zuzenbidea

Araknoide mintza dura eta piamaterraren arteko mintz fina da. ETC-entziklopedia

Beste egitura batzuek haustura erradial edo zentrokideak dituzte, eta amaraun baten antza dutenez '**araknoide**" izena eman zaie. ETC-entziklopedia

Noven ("novae") eta **araknoideen** existentzia dira beste ezaugarri berezi batzuk. ETC-entziklopedia

---

araknologia *iz* armiarmak aztertzen dituen zientzia.

Lehen **araknologia** tratatua, bere ziegako armiarmak ikertuz egin zuen Quatremère-Disjonval-ek XIX.ean. Koldo Izagirre

---

arakoil *izond* barrabil bakarreko gizon edo animalia arra.

Egoera hura, bistan da, ez zen irautekoa eta gizon **arakoila** nire atzetik gurekin hiruzpalau irtenaldi egin ondoren, gehiago etortzeari utzi egin zion behingoan. Aitor Arana

-Arakoila naizelako -esan zidan eta ezer ulertzeke jarraitu nuen, orduan ez nuelako "**arakoila**" hitzaren esanahia ezagutzen. Aitor Arana

---

aralde *iz* taldea, aldra, samalda.

Araldea dabilkit gelan, balkoitik sartuta, ohe bueltan, ilaran. Iñigo Aranbarri

Araldeak tabernan identifikatu duen gizonaz dudarik izan ez dadin, entzun, entzun nola mintzo den erasotzailearen aho zantarra. Iñigo Aranbarri

Udatiar **aralde** gotor hori etorriz geroz, gure KAXKETAdunak, arras kexu dabiltza. Herria

---

araldi *iz* abereen emeak umea edo umeak izateko eran dauden aldia.

Behin **araldia** igarota, urteko gainontzeko garaietan apenas izaten duten jarduera sexualik. Luis Elberdin

Katuak, txakurrak edo ardiak oso garai laburretan parekatzen dira, hau da, **araldian** daudenean baino ez. Luis Elberdin

Urtean behin edo, **araldi** garaian, egingo dituzte euren saiotxoak, eta hurrengo urtera arte! J.M. Olaizola "Txiliku"

Araldi betean dauden hainbeste ar amorratuen artean, emeak, orokorrean, ongi gordeta daude, batez ere aire hartzera ateratzen direnean. Jon Alonso

Orain, ez zuen herabetasunik batere, haren **araldia** bete-betekoa zen, oilategietako simaurra ere berotzeko modukoa. Karlos Zabala

Bere izaeraren arabera joaten eta etortzen da, komenigarri deritzona jaten du, aurkitzen duen toki egokian babesten da, bero aurkitzen duen lehen emearekin elkartzen da, **araldirik** badu behintzat. Xabier Kintana

---

aramaiko *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)* **1** *izond* aramearra.

Pertsonaia bibliko honek, herri **aramaikoa** sortuko zuen. ETC-entziklopedia

Aramaikoaren erabilerak hedapen handia izan zuen asiriar inperioan: pixkanaka-pixkana, kuneiformea ordezkatu zuen. ETC-entziklopedia

Nagusiki, K. a. 500ko hamarkada K. a. 506 eta K. a. 497an, kantzilerren hizkuntza zen elamiteraz berrargitaratutako testu administratiboak dituzte, baina **aramaikoz** berrargitaratutako taulatxoak, 500 inguru, deszifratuak izan dira. ETC-entziklopedia

2 ***alfabeto aramaiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Sogdianerak, idazketa sistema ezberdinak erabiltzen zituen, guztiak, aramear alfabeto edo **alfabeto aramaikotik** zetozenak. ETC-entziklopedia

aramaioar *izlag/iz* Aramaiokoa, Aramaiori dagokiona, Aramaioko biztanlea.

Pedro Ignazio Barrutia **aramaioarrak** XVIII. mendean idatzitako teatro lana argitaratu zuen, eta gertakari ortografiko "harrigarri" batez ohartu zen, mende bi lehenago idatzitako lan horretan. Koldo Zuazo

Horietarik sei dira finaleratu: Iñaki Vinaxpre abetxukoarra, Manex Agirre **aramaioarra** eta lau gasteiztar, Oihane Perea, Juan Mari Juaristi, Asier Otamendi eta Ruben Sanchez. Herria

---

aramantza ik **harramantza**.

---

aramear **1** *izlag* Arameakoa, Arameari dagokiona.

Aramear alfabetoari dagokionez, are konkista handiagoak egin zituen. Iñaki Mendiguren

'Ikusi' aditzak, **aramear** hizkuntza horretan 'hautematea' eta 'hautemaniko gauza egiaz izan den bezala hautematea' esangurak dauzkala. Xabier Kintana

Garbi da bere biziko urratsetan, Jesusek osoki judu izaitea hautatu duela: lege, ohidura, usaiak obratuz, **aramear** hizkuntza erabiliz. Herria

Orduan, kaldear, **aramear**, moabdar eta amondar taldeak bidali zituen Jaunak Joiakim erregearen aurka, Juda desegin zezaten. Elizen arteko biblia

Judako parroki estatu siriakoa, nondik baitzetorren judueria, hainbat hebertar, feniziar, **aramear** eta filistear komunitatetako bat izana zen. Iñaki Mendiguren

2 *iz* Arameako biztanlea.

Egizu miresten duzun **aramear** hark bezala. Itxaro Borda

Salomonen merkatariek hititen eta **aramearren** errege guztientzat ekarri ohi zituzten halakoak.

---

arameera *(orobat **aramera**) iz* Arameako hizkuntza semitikoa, aramearren hizkuntza.

Siriar hitz horrekin egileak Talmudaren garaiko doktoreak adierazten ditu, kaldear edo siriar hizkuntza (**arameera**) erabiltzen zutenak (Munk). Xabier Kintana

Hizkuntza batzuen -adibidez, **aramera** eta latinaren- erabilera hasieran egokitu zitzaizkien inperioak baino askoz harantzago zabaldu zen denboran eta espazioan. Iñaki Mendiguren

Horrela **arameera** edo sirieraz idatziriko Bibliako testuen glosa eta parafrasien multzoari esaten zaie, bereziki. Xabier Kintana

Gogoratzen zaigu bestalde nola Jesusen herritarrek azkenean beren ohiko hizkuntza hebreera baztertu zuten liturgiatik landa eta, beren eguneroko harremanentzat, **arameera** zerabilten. Piarres Xarriton

Mesedez, hitz egiguzu **arameeraz**, ulertzen baitugu. Ez mintzatu hebreeraz, harresi gainean dagoen jendea entzuten ari da eta.

Dena dela, Jesus Jauna bera bezala, **arameeraz** mintzo zen hastetik Jerusalemeko eliza. Piarres Xarriton

Hebreeraz-targum hitzak 'itzulpena' esan nahi du, eta eskuarki jatorriz **arameeraz** idatziriko liburu eta izkribuak aipatzeko erabiltzen da. Xabier Kintana

Bi zatik osatzen dute, Mishnah-k eta Gemarak; aurrenekoa hebreeraz dago idatzia, eta bigarrena **arameeraz**. Koro Navarro

Arameerazko otoitza, Jainkoaren izena goresten, harenganako fedea berresten eta Israelen hilezkortasuna aldarrikatzen duena. Koro Navarro

Hori da Yonathan ben Uziel-ek (bakea bego harekin!) emaniko azalpena, bere **arameerazko** parafrasian honela zioela: [...]. Xabier Kintana

Gutuna **arameera**-idazkeraz eta -hizkeraz idatzia zegoen. Elizen arteko biblia

Estatu unibertsal honen barruko hizkuntza irabazlea ez zen izan honela ofizialki ohoraturiko hiruretako bat ere; **aramera** izan zen, bere idazkera alfabetiko erabilterrazagoarekin. Iñaki Mendiguren

---

arameo *iz* arameera.

Ebangelioetan eta eskritura sakratuetan oinarritu da, eta latinez eta **arameoz** filmatu du, Jim Caviezel aktore protagonistarekin. Berria - Kultura

"Mitoak aparte, ASIA hitza asirierazko açu-tik etor daiteke, eta "sortaldea" esan nahi du; EUROPA, berriz, asierierazko ibi edo **arameozko** ereb-etik, eta "arratsa" esan nahiko luke". Patziku Perurena

---

aramera ik **arameera**.

---

aramiztar *iz* Aramizko biztanlea.

Errugbian, 300 behari sustengatzera etorririk, Angeluarrek **Aramiztarrak** gainditu dituzte 22/15, bigarren denboraldian emendatu dute gureek abantaila markagailuan. Herria

---

aramu *iz* armiarma.

Emanaldiak une polit asko ditu, eta haien artean bereziak izan dira kubo erraldoiak sortutako figurak, sei aro handirekin jolasten zuen **aramu**-gizona, aingeru hegalaria, giza dorreekin egindako akrobaziak, haga malguen gaineko jauzi izugarriak eta, zelan ez, agur-ekitaldia, denek sokasaltoan burutzen dutena. Berria - Kultura

Eta konpondu ostean sabaian ipini zuten **aramu** erraldoia... Sonia Gonzalez

---

aran **1** *iz* aranondoaren fruitua, gereziaren antzekoa baina hura baino handiagoa, azal-leuna eta mami-gozoa, kolorea moten arabera duena.

Aranondo-adar bat gerturatu eta **aran** batzuk bildu ditu. Adarrak **aran** hori piloa zeukan eta bete egin nuen nire alkandora barrua. Itziar Otegi

Eta *mirabella* motako **aran** umotuegi batzuen usaina nagusi zen oroz gain. Karlos Zabala

Kafea ekarri nion eta **aran** egosiak hartu nituen niretzat, idorreriaren kontrako erremedioa. Koro Navarro

Aran ustelen, kontserbagai garratzaren eta arrautza ustelen nahaste baten usaina du gelak. Josu Zabaleta

-Urte berriarekin batera, artean sagarrondoak hostorik gabe direlarik, mihurak bere **aran** modukoak ematen ditik. Edorta Jimenez

Urdaiazpiko ebaki bat zegoen ikusgai azpil urdin handi batean, eta, haren ondoan, **aran**-pudding oso arin baten puska bat plater batean. Irene Aldasoro

Azken oparia zabaldu eta Weasley andreak puntuz egindako beste jertse bat bidali ziola ikusi zuen Harryk, eta **aran**-pastel handi bat ere bai. Iñaki Mendiguren

Postrerako, Adelak jogurt bana atera zuen, berak egina, **aran** eta sagar zati txikiekin, eta masusta-marmeladarekin. Juan Kruz Igerabide

Gizon bat sumatu zuen zurrungaka, soingaineko batez fardel baten gisa bildurik, burua **aran** otarren gainean. Karlos Zabala

Zizare bat harrapatzekotan zegoela, **aran** arbola batetik arana erori eta "kaxk! J.M. Olaizola "Txiliku"

2 ***aran melatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Aranpasa edo **aran melatua** aran idor gozoa da. Berez, fruitu lehor moduan sailkatzen dute nahiz eta fruitu lehortua izan. ETC-entziklopedia

Erre bihurriagoak: erre laranja-xerren gainean eta zuztarrak betetzen zuen zuloan sartu mahaspasak eta **aran melatuak**, koñaketan beratuak, gura izanik. ETC-prentsa

Bazen segurki gauza ona frango: arrain, antzara eta ahateki kontserbuko, arno buxundatu eta edari, erreximeta mota asko, gerezi, ahabi eta beste, ardi gasna, biper eta biperki, **aran melatu**, urdeki, denetarik... ETC-prentsa

3 *klaudia aran*

Ondoan, aran gardenek birjina baten gozotasun klorotikoak agertzen zituzten; **klaudia aranak** eta txiliportak zurbil-zurbil zeuden, xalotasunezko lore bat bezain; mirabellak aletu egiten ziren, kaxa batean banilla makilatxoekin ahazturiko arrosario baten urrezko bihiak bailiran. Karlos Zabala

---

aranatar *izond* Sabin Aranarena, eskuarki berak proposaturiko ortografia erreformari dagokiona.

Ondo gogoratzen nintzen ate aurreko oin-tapizaz, oraindik ere irribarrea eragiten zidan "Ongi etor´i" **aranatarrarekin**. Iban Zaldua

---

aranazale *izond* Sabin Aranaren abertzaletasunaren aldekoa dena.

Hitz batean esateko, momentuko euskal gizartean eraginkor ziren mugimendu horiek (nazionalismo **aranazalea**, komunismoa, eliza militantea) ez ziren inolaz ere ETA, baina ETAk horiengandik ikasi beharra. Joseba Zulaika

ETAk nazionalismo **aranazalearen** Jainkoarenganako sinesmen programatikoa abandonatzean, zera erabaki zuen, haren "Beste" nagusia ez zela beharrezko. Joseba Zulaika

---

aranaztar *(orobat **aranztar**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **aranaztar** agertzen da) iz* Arantzakoa, Arantzari dagokiona; Arantzako biztanlea.

Pello **aranaztarra** Fagoaga-tarren arbasoa etzen guti loriatuko, gogoratzearekin askaziaren ondar aldaxka, Sarako pilota plazan ager zitakela egun batez bere aitatxi iduri, xixtera eskuan, osaba bezala. Herria

Hantxe gelditu da bakar bakarrik etxekandre **aranaztarra**, zerua goian eta lurra behean, beste anparorik gabe, bost umegorri negarrez, soineko beltzetik tiraka dituela. Patziku Perurena

Argentinan gaindi misionest lanetan ari den Ines Lukanbio serora **aranztarrak** ditu horiek guziak banatuko argentindar behartsueri. Herria

Nik izautu nien Gorostingo Martioxe; **aranaztarra** yuen sortzez, ta babazale amortua, ta ark esaten zien: gizonak eunen bi otordukin aski zula, ta plato bakarra, biño artatik naikoa. Patziku Perurena

Harritu egin nau **aranaztarren** martingalak. Patziku Perurena

Jon Barberena eta Jon Elizetxe baztandarrak, Mizel Mateo bidarraitarra, Alazne Untxalo iturendarra, Julen Zelaieta beratarra, Oier Lakuntza iruñearra, Julio Soto gorritiarra eta Eneko Lazkoz etxarri- **aranaztarra**. Herria

Etxarri- **Aranaztarrak** gaina hartu eta atxiki dio Zubirikoari. Herria

Eibarko "Katedralean" Azkaindarra joko gaitza eginez Etxarri **Aranaztarrari** nausitu da. Herria

---

aranbeltz *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* azal belzkara duen aran mota.

Eta horrez gain, fruta asko dago: **aranbeltzak**, klaudiak, albertxikoak, sagarrak, madariak. ETC-literatura, saiakera

---

arandun *izond* aranak dituena.

Badira aranondo **arandunak**. Josu Zabaleta

---

aranera *iz* gaskoiaren aldaera, Arango bailaran mintzatzen dena.

Arango bailara errealitate nazionala dela jasotzen da eta bertako hizkuntza, **aranera**, ofiziala Katalunian. Berria - Harian

---

aranes *iz* aranera.

Era berean, Aran Bailarako hizkuntza ofizial gisa onartzen du **aranesa** (okzitanieraren aldaera). Berria - Mundua

Arango bailara errealitate nazionala dela jasotzen da eta bertako hizkuntza, **aranesa**, ofiziala Katalunian. Berria - Harian

---

aranismo *iz* Sabin Aranaren doktrina politikoa eta linguistikoa.

Euskal lege eta erakunde tradizionalak euskal demokrazia moderno bat sortzeko abiapuntu besterik ez ziren, euskal nazionalismo berri bat sortu behar zen **aranismo** eta separatismotik harantzago, Europa federal batean bilatu behar zen Euskadiren tokia. Joseba Zulaika

Gutxienez 1900-1968 arteko deus ezer ulertu nahi bada Europan, berdin da eskuineko zein ezkerreko mugimendu politikoak, artistikoak ala literarioak, baina orobat Euskadin **aranismoa**, Euskaldunak edo Garoa-ko ruralismoa, edo "euskal pintoreak" ohi deritzenen pintura, gerraurreko sozialismoa eta komunismoa, kooperatibismo arizmenditarra gero, edo gure Mirande. Joxe Azurmendi

Gurean **aranismoari** egotzi izan zaio ahozko tradizioarekiko arbuioa, baina jarrera hori askoz ere lehenagokoa da. Anjel Lertxundi

Eginaren eginez, tradizioarekin eta gramatikarekin hautsi gabe komunikaziorako tresna argia lortu du. Hemen ez da izan **aranismorik**, hizkuntza ez da izan garbitasunaren sinbolo helgaitza, are gutxiago esperimentatzaileen tresna iluna. Janbattitt Dirassar

---

aranista *(corpusean ez dago; ETCn **87** agerraldi) izond/iz* Sabino Aranari dagokiona; Sabino Aranaren jarraitzailea. ik **sabindar**.

Propaganda **aranista** hasia zen Euskal Herrian, bere akats guztiekin ere, historiaren ikusmoldea iraultzen euskaldunoi. ETC-literatura, saiakera

EAJ ofentsiboak, behinolako karlistak, **aranista** primitiboak, ETC-literatura, saiakera

Belaunaldi honetako denek polemizatu dute arrazismo **aranistarekin** (Txillardegik, aldiz, uste du, ez duela merezi: arrazistarik ez dela gelditzen aranismoan). ETC-literatura, saiakera

Honezkero integrista eta **aranista** bakarrak hemen, Arana baino aranatarragoak, haren etsai espainolistak direla. ETC-literatura, saiakera

Identitatea zer den ere zehazten ari gara: orain arte oso definizio tradizionala, baztertzailea erabili izan da **aranista**, esango nuke, eta orain, aldiz, integratzaileagoa. ETC-prentsa

Mende hasierako **aranistek** ostikoketa proposatu zuten euskaraz futbolari deitzeko. ETC-prentsa

Itxaropena argitaletxeak 1960an argitaratu zuen bilduma hartu du oinarritzat Hiriartek, "ortografia **aranistaren** tildeak eta beste egokituaz soilik". ETC-prentsa

Abertzale garenok ez gara **aranista** abertzaleak. ETC-prentsa

Euskotar/Espainiar edota Euskotar/Frantziar dikotomia **aranista** izan da azken 110 urteotako ustezko abertzaletasunak garatu duena. ETC-prentsa

Baina abertzaletasun **aranista** izan da euskal kontzientzia horren mugimendurik handiena, arrakastatsuena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hain zen handia eta zabala abertzaletasun **aranistaren** presentzia Uruguaiko euskal koloniaren baitan, holako gatazka batean parte hartzeko? ETC-zientzia, zuzenbidea

Esan bezala, nazionalismo **aranistarekin** markatzen duen distantziak euskal idazle klasikoak irrigarri uztera ere badarama, elizgizonak izan baitziren, gehienbat, euskarazko literatura idatzia garatu zutenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aranoar *(orobat **aranotar** g.er.) izlag/izond/iz* Aranokoa, Aranori dagokiona; Aranoko biztanlea.

Han etorriko zen mendiz **aranoar** koadrila, Ilagorrinbordan beheiti, Anastaxio Leontxonbordakua kordionakin zutela. Patziku Perurena

Joxemari Legarreta **aranoarrak** badaki nor zen San Roke: [...]. Patziku Perurena

Emakumezkoetan, hirugarren sailkatu zen Ainhoa Ansa **aranotarra**, eta bi finlandiarrek bakarrik hartu zioten aurrea (Kammonenek eta Vaitienimik). Berria - Kirola

Amarkin hirugarrenean berriz, **Aranoarrak** Goizuetarran kontra. Patziku Perurena

---

aranondo *iz* aranak ematen dituen zuhaitza, lore-goiztarra *(Prunus domestica).*

Fruitu arbola horiek, **aranondoak** agian, desfilatuz doazenak. Dagoeneko **aranondoak** badoaz fruituz zamatzen, eta elurrak kaskoak estaltzen dituenean agertuko da erbinude zu ria, eta elur-eperra. Josu Zabaleta

Aranondo baten adar bat ateratzen zen harresi baten gainetik kanpora eta, behinola, geratu egin nintzen. Koldo Biguri

Pinua irteten bada, berri on bat etorriko da; paulonia baldin bada, berriz, dirua; euria baldin bada, kezka bat dator; **aranondoa** izanez gero, maitasuna. Juan Kruz Igerabide

Kartak nahasi eta mila eratara elkartzen zituen; aurpegian desilusioa eta urduritasuna agertzen zitzaizkion, eta ez zitzaizkion joaten harik eta **aranondoa** eta paulonia ateratzen zituen arte. Juan Kruz Igerabide

Badira **aranondo** arandunak. Josu Zabaleta

Haien lorratzari jarraitu zien, **aranondo** loratuek gidatutako figura ilun zarpail hark. Anton Garikano

Gero, zelaietan **aranondoen** gerizpean eserita, jan eta jan aritzen ziren. Agustin Otsoa

Leihoek **aranondoz** betetako jardin luze eta estu batera ematen zuten. Xabier Olarra

Axenariok esku-argia jaso, **aranondo**-adar bat gerturatu eta aran batzuk bildu ditu. Itziar Otegi

Satiragile doilorrak baitio, hara, urdinduak dituztela agureek bizarrak, haien aurpegiak zimurturik daudela, begiei erretxina lodi eta **aranondo**-goma dariela, eta aurki nagusitzen zaiela buru-eskasia, guztizko zango-ahultasunarekin batera. Juan Garzia

---

aranotar ik **aranoar**.

---

aranots *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* oihartzuna. ik **arada**.

Baikortasun positibistaren gainbeherak eta Jainkoaren isiltze edo heriotzak izan dute **aranotsik** euskal letretan, Txillardegiren idatziak giro horretan trenpatuak daude. ETC-literatura, saiakera

Aztoramendua izugarria izan da, eta **aranotsa** gurera heldu da. ETC-prentsa

---

aranpasa *(orobat **aran pasa**) iz* eguzkitan idorturiko arana.

Horrelako ostatuetan, eguneko bi errublo ordaindurik, gela erosoa ematen diote bidaiariari; hori bai, **aranpasa** adinako labezomorroak azaltzen dira zoko-bazter guztietan.postrerako, **aran-pasak** atera zituen, gurinezko eta kokozko ore batez beteak, gainetik txokolate beroarekin. Jose Morales

Saint-Denis kalean litxarreriaren artera sartzen ziren; irribarre egiten zieten gozo dendetako erregaliz zainei, **aran pasei**, labean lehortutako sagar zanpatuei, kandi azukreari. Karlos Zabala

---

arantza *(orobat **arantze** g.er.)* **1** *iz* landare batzuetan sortzen diren ziri zorrotzetako bakoitza; animalia batzuek defentsarako duten ziria.

Zergatik ote ditu horrenbeste **arantza** elorriak? Joxean Agirre

Ziztaden tamaina ikusita, **arantza** hauek oin beteko luzera izan behar dute, soinean daramadan guztia zeharkatu dute eta! Agustin Otsoa

Oihal hauen egikera dela-eta, ehunean trabatutako **arantza** edo iltze batek karratuak osatuz urratuko ditu. Koro Navarro

Mutikoa bere oin potzolotik **arantza** bat ateratzeko ahalegin-keinu amaigabean ari zen. Mirentxu Larrañaga

Saihetsean eztenkada eta begietan **arantza** bezain mingarri. Elizen arteko biblia

Landu soro berriak, ez erein **arantza** artean. Elizen arteko biblia

Fangek ulu egin zuen eta ihes egiten saiatu zen, baina **arantza** artean katigatuta geratu zen eta are ulu ozenagoak egin zituen. Iñaki Mendiguren

Nik ongi ezaguna baitut hari darion usaina, **arantza** arteko arrosa da eta, zelaietako lirioa, eta anbar urtua bera. Patxi Ezkiaga

Zonbat elorri eta **arantze** ez dago gutan ihaurri. Herria

Arrosapean beti **arantza**. Imanol Zurutuza

-Hik asteak daramatzak, Simon, aste osoak, heure barruan sartuta eta trikua bezala kizkurtuta, **arantza** eta guzti. Hasier Etxeberria

2 (izenondoekin)

Ez dute jada auzoko herriek Israel mesprezatuko, ez dute **arantza** zorrotz eta lahar mingarriek bezala zulatuko. Elizen arteko biblia

Batzuek **arantza** zorrotz eta luzeak zituzten, eta besteek mendu gakotuak eta labanak bezain zorrotzak. Agustin Otsoa

Lodi zegoen pilaturik gurutze eta hilarri okertuen gainean, ate txikiaren lantzen gainean, **arantza** soilen gainean. Irene Aldasoro

Kirikinoa nintzen, gorputza bere osoan **arantza** legezko ile luze latz zorrotzez josia. Edorta Jimenez

Egiten zidan eskaintza, arrosa baten parekoa zen: lore ederra usain onarekin baina bere **arantza** ziztadunekin ere! Daniel Landart

Haren orkatila puztuak triku bat zirudien, **arantza** zilarrezkoekin. Juan Kruz Igerabide

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Burezurra eta berna-hezurrak zeuzkan zizelaturik, eta **arantza**-koroa haien inguruan. Jose Morales

Trailutzar antzeko bat zebilkion dinbi eta danba, zanpaka; mamia hezurretik tarratatu nahi zion **arantza**-mutur handi bat balitz bezala. Mirentxu Larrañaga

Ba omen du elikagairik, nahikoa atsegina denik, pulpa dezente baitu bere **arantza** -puntta horien atzetik. Pello Zabala

Udaberriak lore txuriz janzten ditu arbolarik goiztiarrenak, sahatsa, gereziondoa edo elur-**arantza** kasu. Pako Aristi

Hantxe zeukan bere aurrean, gori-gori, trikutzar **arantza** -zut baten gisa. Juan Garzia

4 irud/hed

Urteetan aurrera doa, baina Divacek badu **arantza** bat, Los Angelesen atera nahi duen **arantza**. Berria - Kirola

-Neurri batean gizaki orok darama urruti-minaren **arantza** hori bere baitan itsatsirik. Joxean Agirre

Frustrazio horren **arantza** eraman ezinez bizi da D'Annunzio. Berria - Kultura

Leitzarango autobidearena, **"arantza** baino gehiago, gurutze-bidea" izan zen Muruarentzat, bere hitzetan. Berria - Euskal Herria

Baina **arantza** bat gelditzen zitzaion bihotzean. Koldo Biguri

Nik uste, **arantza** batekin gelditu dela Manu. Berria - Ekonomia

Hala ere, barrenean sartuta neukan gizon haren irudia, eta barrenago berriz beste **arantza** bat: aldizkariko erredakzioan agertu zen emakumea nor ote zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Datu bakoitza bere bihotzean **arantza** bat, zizt, eta gero beste bat, zizt. Edorta Jimenez

Arantza eta lore ugari topatuko baituzu testuotan, non zer dagoen bereizteko zail den nahas-mahasean. Patziku Perurena

Hala ere, badu **arantza** bat leku mingarrian iltzatuta. Hasier Etxeberria

Gerra zaharraren **arantza** barruan zeraman, bizirik oraindik, eta iloba hil berria beste aldekoetan ikusten zuen, nonbait. Xabier Mendiguren Elizegi

Aurreko lorpen guztien erramu-koroa izan beharko zukeen azken xehetasun hau bihurtu zen, hala ere, urte batzuetako bere **arantza** minena. Xabier Mendiguren Elizegi

Arantza askoko bidea Errukia daukagu begietan, **arantza** hezurretaraino sartua, eta horrek lausotzen digu ikusmena. Karlos Linazasoro

Zerua ez da inoiz hain egiazko izan, hain **arantza** gabe zure ezpainak. Karlos Linazasoro

Aldi berean, SOS Arrazakeriako kideek **arantza** txiki bat kendu dutela uste du Hernandezek. Berria - Harian

Nahiz eta pozak, arrosak bezala, berekin izan beti bere **arantza**. Xabier Mendiguren Elizegi

5 ***arantza apofisi*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Zeharkako apofisi eta **arantza apofisi** artean, bestalde, lamina dago. Bi egitura hauen artean orno arkua eratzen dute. ETC-entziklopedia

6 ***arantza azpiko muskulu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Tuberkulu nagusia: muskulu desberdinak ezartzen dira: arantza gaineko muskulua, **arantza azpiko muskulua** eta muskulu biribil txikia. ETC-entziklopedia

7 ***arantza bifido*** *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Arantza bifidoa sortzetiko malformazio bat da zeinean hodi neuralaren itxiera ez-osoa ematen den. ETC-entziklopedia

Esaterako, Newcastleko unibertsitateak Erresuma Batuko Cambriako erraustegi ezagunean 2003an egindako ikerketaren arabera, jaioberrietan eta fetuetan %17 malformazio eta mutazio kasu gehiago (**arantza bifidoa**, erbi-ezpaina...) atzeman da inguruko biztanleetan. ETC-prentsa

Emakume haurdunek behar dute hura hartu haurdunaldiaren lehenengo hiru hilabeteetan, haurrak **arantza bifidoa** izatea saihesteko. ETC-prentsa

Jokin Fisicok (Arrigorriaga, Bizkaia, 1993) **arantza bifidoa** du, sortzetiko eritasun ezohiko bat, eta, horren ondorioz, esaterako, mugatua du mugikortasuna. ETC-prentsa

"Beti esan ziguten **arantza bifidoa** izateko arriskua handitzen zela", oroitu du Itziarrek. ETC-prentsa

Balizko akordio horren oinarriak finkatzeko, abiaburu izan daitezke bizitzarako edota osasunerako eta giza duintasunerako 30 gaixotasun latzenak izan daitezkeen horiek; kasurako, Huntington eta Duchenne sindromeak, **arantza bifidoa**, etab. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***arantza erdibitu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arantza erdibitua jasaten dutenen ezaugarri batzuk 20. astean egindako ekografian igar daitezke. ETC-entziklopedia

9 ***arantza gaineko muskulu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Tuberkulu nagusia: muskulu desberdinak ezartzen dira: **arantza gaineko muskulua**, arantza azpiko muskulua eta muskulu biribil txikia. ETC-entziklopedia

10 ***arantza-koroa***

Burezurra eta berna-hezurrak zeuzkan zizelaturik, eta **arantza-koroa** haien inguruan. Jose Morales

Komentuak, monasterioak eta katedralak zein baino zein ibili ziren Lignum Crucis-aren ezpalak, era guztietako iltzeak eta **arantza-koroaren** zatiak lortzeko. Alberto Ladron Arana

11 ***arantzen koroa*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Flagelazioaren zutarria eta gurutzea daude nabarmenen, baina zutarriari eusten dion aingeruak hiru iltze ditu eskuan, gurutziltzatzean erabilitakoak. Lurrean, **arantzen koroa** eta zigorra ere bistan dira. ETC-entziklopedia

12 ***elorri-arantza***

Jesus Nazaretekoari ere, bere erregegoaz iseka eta burla egiteko, trapu eskarlatazkoa janzteaz batera, buruan **elorri-arantzazko** koroa eta kanabera eskuan ipini zizkioten. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arantza artean (4); **arantza atera du** (3); **arantza atera nahi** (5); **arantza atera zuen** (9); **arantza bat** (17); **arantza hori kendu** (5); **arantza kendu nahi** (6); **arantza kentzeko** (6); **arantza sartua** (4); **azaldu du arantza** (3); **baina arantza** (5); **barrena eta arantza** (3); **bere arantza** (4); **ditu horrenbeste arantza** (3); **duen arantza** (3); **horrenbeste arantza elorriak** (3); **iazko arantza** (7); **izanaren arantza atera** (3); **kide arantza** (3); **sartu izanaren arantza** (3); **txapelketako arantza** (3)

arrosak eta arantzak (3)

arantzarik gabe (3)

arantzazko koroa (5)

---

arantzabeltz *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* elorri beltza.

Elorri beltza edo **arantzabeltza** ("Prunus spinosa") mendi aldean hazten den zuhaixka da, estimatua bere fruituak direla eta, basaranak alegia. ETC-entziklopedia

---

arantzadi *iz* arantzadun landare asko dagoen tokia.

Geldian, lurrak leku bakoitzean duen zaporea dasta daiteke, pentze samurren gozotasuna, **arantzadien** mikatza, goroldioaren umeltasun sarkorra pagopean, ogi lehorraren papur desegina haitzartean... Pako Aristi

---

arantzadun **1** *izond/izlag* arantza edo arantzak dituena.

Inguru hauetan, behin baino gehiagotan erreparatu diet behorrei, ezpainak ondo zabaldu eta apartuta, nola hortzak eransten dizkieten ote-punta **arantzadun** horiei. Pello Zabala

Begitxo distiratsuak dituen zozo bat ikusi dut, burdin hari **arantzadun** haga baten gorenean pausaturik, munduari kanta-kantari. Mirentxu Larrañaga

Estu-estu sorbaldak, alanbre **arantzadunezko** soinaren gainean zut. Jon Muñoz

Hitz egiten ari zela esku-zartako bizi bat eman zion landare gorri ilun **arantzadun** bati eta erretirarazi egin zizkion isil-misilka haren sorbaldara luzatuak zituen garro luzeak. Iñaki Mendiguren

Haren hegal **arantzadunak** izugarri handiak ziren bere gorputzaren aldean. Iñaki Mendiguren

Sasi lehor **arantzadunei** heldu nien, baina erroak atera egin ziren. Koro Navarro

Haren hegal **arantzadunak** izugarri handiak ziren bere gorputzaren aldean. Iñaki Mendiguren

Hurrengo instantean bertan gelditu eta izozten zen arte olatu harroen belztasun **arantzadunagatik**. Anton Garikano

Begitxo distiratsuak dituen zozo bat ikusi dut, burdin hari **arantzadun** haga baten gorenean pausaturik, munduari kanta-kantari. Mirentxu Larrañaga

Arantzadun koroa litzateke hori. Berria - Ekonomia

2 *alanbre arantzadun*

Haietan erlijio bakoitzak bere hilerri propioa izaten du, **alanbre arantzadunez** eta hesi sendoz babestua. Iñaki Zabaleta

Italiarrentzako kontzentrazio eremu batean bizi zen, inguru guzti-guztian **alanbre arantzaduna** zuten kasernatzarrak ziren, hiritik oso urruti. Fernando Rey

Arrebak sonanbulo-urratsez aurrera nola egiten zuen begira geratu zen Jonathan: begitartea barrurantz erabat bildua; estu-estu sorbaldak, **alanbre arantzadunezko** soinaren gainean zut. Jon Muñoz

3 *bastanga arantzadun* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Bastanga arantzaduna ("Dasyatis centroura") ur gaziko kondriktie arrain kartilaginosoa da, Dasyatidae familiakoa. ETC-entziklopedia

4 *isats arantzadun* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Isats arantzadun ("Calicotome spinosa"), Fabaceae familiako basa landarea. ETC-entziklopedia

Hona Coleophora genero honetako tximeleten beldarrak aurkitzeko egokiera emango dizuten landare batzuk: asentsio-belarra, uso-belarra, [...] **isats arantzaduna**, sabi hostozuria, sapelarra, [...] itsabalkia eta abar luuuuuuuuuuuze bat. ETC-prentsa

5 *mazkar arantzadun* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Mazkar arantzaduna ("Cobitis calderoni") "Cobitis" generoko animalia espezie bat da. Arrainen barruko Cobitidae familian sailkatzen da. ETC-entziklopedia

---

arantzatsu 1 *izond* arantza asko duena.

Erauzitako puskak ematen zuten, eta sasi **arantzatsuan** zeuden, lurretik oin bat gora edo. Koro Navarro

Bertan geratu ziren hobbitak, zuhaixka **arantzatsuaren** babesean, Mordorko argi iluna astiro amatatzen zen bitartean, gau ilun eta izarrik gabeari tokia uzteko. Agustin Otsoa

Kardu **arantzatsua**, ardien ilea harrotzeko karduaren antzeko tresna. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sasi **arantzatsuen** artean. Agustin Otsoa

Oberskik (Amsterdam,1938), mataza bat, edo triku **arantzatsu** bat, gordetzen zuen bere baitan Bigarren Gerra bukatu eta hogeita hamar urte geroago idaz-makinari eragin zionean. Berria - Kultura

Otarrain **arantzatsuek**, mixera marra beltzekoek, artean bizirik, karraska egiten zuten beren hanka hautsien gainean herrestan zebiltzalarik. Karlos Zabala

Unibertsitatea, Ritarentzat, ez zen inolaz ere Jakituriaren tenplua: bidexka **arantzatsu** eta nekagarri bat zen, titulura, lanpostura eta ogibidera zeramana. Juan Garzia

-Agur, Julieta laztana betiko! -esan du, hitzek eztarrian gora sasi **arantzatsuren** bat aurkitu izan balute bezalako ele urratu batez. Anjel Lertxundi

Zerurako bide malkor **arantzatsua**. Juan Garzia

2 irud/hed

Txostenak hamaika auzi **arantzatsu** eta arlo kezkagarri aletu ditu: [...]. Berria - Harian

Londresek eta Dublinek iragan irailean elkarrizketa trinkoak izan zituzten Leedsen (Ingalaterra) eta bai Blairrek bai Ahernek esan zuten auzi **arantzatsuenak** "IRAren desarmea eta etorkizuneko ekinbide paramilitarra" konponbidean zeudela. Baionak, berriz, mailari eusteko ahaleginetan dihardu liga hasi zenetik, eta bihar erronka **arantzatsua** ukanen du Agenen aurka, Jean Dauger zelaian (18: 30). Berria - Mundua

Erabaki **arantzatsua** da gizakiei ere botikak ematen hastea, ez dagoelako argi funtzionatuko duten. Berria - Gaiak

Nola liteke gai **arantzatsuotan** egia ez esateko ausardia izatea? Berria - Euskal Herria

Mahai gainean beste bi gai **arantzatsu** daude: pentsioen erreforma eta negoziazio kolektiboarena. Berria - Ekonomia

Gai **arantzatsu** batzuen gainean teologia protestanteak zer zioen gogoratzen ahalegindu zen. Irene Aldasoro

3 *kardu arantzatsu*

Kardu arantzatsua, ardien ilea harrotzeko karduaren antzeko tresna, **kardu arantzatsuak** edo tresnak bezala ardien ileak harrotzen eta biltzen dituen hesia. J.M. Olaizola "Txiliku"

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gai arantzatsu** (3)

---

arantzatu *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *izond* iltzatu.

Malkoek ustekabetu zuten berriro, egunak eta asteak aurretik bihotzaren eta urdailaren artean **arantzatua** zuen nahigabe berberak. ETC-literatura, saiakera

---

arantzatxo 1 *iz adkor* arantza txikia.

Arrosatxo hori bitxiak zeuden barruan, euren zurtoin, hosto eta **arantzatxo** bigun gorri odol-kolore eta guzti. Mirentxu Larrañaga

Dela loratxoaren xuri garbia, edo fruitu aletxoaren gorri odolezkoa, dela hosto kantoietako **arantzatxoen** ziztada, edo azalaren distira lustrezkoa edo garratz ozpina. Pello Zabala

2 irud/hed

Sadarrera etorri zirenean ez zen arazorik izan, baina **arantzatxo** bat badut oraindik. Berria - Kirola

---

arantzazko *izlag* arantzari dagokiona.

Borta honen barnean, guardia-leku eta zentinelaren gainean, zur margotuko Kristo handi bat, odol tanta handiak dituela **arantzazko** koroaren pean. Koldo Izagirre

Inork gutxik eramango luke zure **arantzazko** koroa horren duin, horren burgoi. Karlos Linazasoro

Pilatosek Jesus hartu eta zigorkatu egin zuen; eta soldaduek **arantzazko** koroa bat egin eta buruan ezarri zioten, eta purpuraz jantzirik, etorri eta esaten zioten: "Agur, judutarren errege"; eta masailekoak ematen zizkioten. Patxi Altuna

Zuloa hor egongo da oraindik, Basoko Loti Ederraren antzera sasiak hartua eta **arantzazko** hesi batek inguratua. Xabier Mendiguren Elizegi

Gosetuek jango dute hark bildutako uzta, kendu egingo diote, **arantzazko** hesiak jarri arren; egarrituek zurrupatuko diote ondarea. Elizen arteko biblia

Soldaduek, **arantzazko** koroa eginik, buruan ezarri zioten eta purpurazko mantua bota zioten gainera. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arantzazko koroa** (5)

arantzazutar *izond* Arantzazukoa, Arantzazuri dagokiona.

Frantziskotar izaera mendiko eta **arantzazutarra** zuen han: eta espiritu berorixe zuten guztiek ere zuztar-zuztarrean. Pello Zabala

---

arantze ik **arantza**.

---

arantzel *iz* zergen, eta eskuarki muga-zergen, tarifa.

Atzo ezarri zituen indarrean EBk Txina eta Vietnamgo zapaten gaineko lehen **arantzelak**, kostu azpitik ekoizten direla argudiatuta. Berria - Ekonomia

Atzoz geroztik, %5 handitu ditu zigortutako produktuen gaineko **arantzelak**, eta hilero beste %1 emendatuko ditu. Berria - Ekonomia

Arantzelaren igoera jasango dute bitxiek, hozkailuek, paperak, patinek, urdaiazpikoek, eztiak, piñak, esne-hautsak edo zenbait arropek ere (prakek, jakek eta oherako arropek). Berria - Ekonomia

Munduko Merkataritza Erakundeak arauz kanpokotzat jo zuen hainbat enpresaburuk esportazioetarako zerga laguntzak jasotzea ahalbidetzen zuen AEBetako legea; Europako Batasunari, ordainean, **arantzelen** bidez urtean 4.000 milioi dolarrerainoko zigorrak jartzeko baimena eman zion. Berria - Ekonomia

Dokumentuak dio nekazaritza produktuei merkatuak ireki behar zaizkiela, eta horretarako mugasariak pixkanaka murriztea proposatu du, batez ere **arantzel** handienak. Berria - Ekonomia

---

arantzurde *iz* ugaztun karraskaria, bizkarra eta alboak adarkizko arantzez eslatiak dituena.

Oposizioko buruak konstituzioaren kontrakoa iritzi zion erreformari ituna erreformatzeko modu ezkutua zela esan zuen eta "adabakiak" jarri arren konstituzioaren kontrakoa izaten jarraituko zuela adierazi zuen: **"Arantzurde** bati ilea kizkurtu nahi izatea bezalakoa da". Berria - Harian

Ez izatera debeku nagoen espetxeko sekretuez mintzatzea, banikek kontakizun bat zeinaren hitzik arinenak hire arima bailuke erdiratuko, odol gazte hori izoztu, begi biok, izar antzo, beren esferetatik jauzarazi, hire xerlo dotore izurtuok bereizi eta banakako ile bakoitza tente laztu, **arantzurde** larrituaren zirien gisara. Juan Garzia

---

arantzurdeki *iz* arantzurdearen haragia.

Tximino, suge, krokodilo, hartz inurrijale edota **arantzurdekia**, horra eskaintzen zitzaigun aukera parebakoa. Xabier Montoia

---

aranztar ik **aranaztar**.

---

arao 1 *iz* zerbait lortzeko erabiltzen den hitza, eskuarki goi izpirituei dei eginez; madarikazioa, biraoa.

-Zergatik ez zioten kuttun batekin **arao** egin? Koro Navarro

Horregatik hain ume zuri eta lodi hura, zakutik irribarrez atera eta begiak zabalik jaio zena ikusi zutenean senitarteko eta auzoko guztiak konjuruka hasi ziren, **arao** egiten, etxe gainera gatza botatzen, dena zerutik eroritako aingerua ematen zuen haurra babesteko asmoz. Bego Montorio

Orduan Landolfo jaunak **arao** egin zion Jainkoaren izenean, egia esan zezan hilik zegoela esaten zuen San Frantziskoren santutasunaz, eta artean bizi zen Santa Klararenaz. Askoren artean

Lagunek zauria lotu zioten Ulisesi, eta **arao** bat esan zuten odoljario beltza geldiarazteko. Juan Kruz Igerabide

Halaxe aritu zen luzaz, biraoari irain eta irainari **arao**. Anjel Lertxundi

Aztikeriari berehala antzeman zioten eta, sorgin batek **arao** egokiak esan zituelarik, Badr erregea atzera gizon bihurtu zen. Patxi Zubizarreta

Hirugarrena, berriz, "khanèc", iradokizunez bete-betea, hil edo biziko ibilbide den aldetik heltzen dio lepo hitzari, hots, itxi, trabatu zein ebaki daitekeen zera den aldetik, eta "c'at resta ant 'l khanèc" (zintzurrean trabes geratuko ahal zaik) eta halako **araoetan** erabiltzen da. Juan Garzia

Lapurren buruzagiak, harkaitzera iritsirik, ezpata zorrotik atera, eta ohiko **araoa** ahoskatu zuen. Patxi Zubizarreta

Sutara berriro lurrin doi bat isuririk, bere **araoa** ahoskatu zuen eta harlosa berriro ere zulo gainean egokitu zen, azti afrikarra eta Aladinen etorreraren aurretik zegoen bezalaxe. Patxi Zubizarreta

Alabaina, lapurrei zalantza piztu zitzaien: gizon hark nola lortu ote zuen ezkutalekura sartzea, ezagutuko al zuen hara sartzeko **araoa**, beste norbaitek ere izango al zuen horren berri? Patxi Zubizarreta

Abracadabra Gaitzak eta hondamenak uxatzeko **arao** hitza; hizkera ulertezina. Xabier Olarra

Eleberri hau irakurri nahi duenak, balia dezake, eta ez da gutxi, autorearen eta obraren gainean zabaldu den aztikeriarik gaiztoenetako bat **araoz** uxatzeko: autorearen misoginia ia sortzezkoa. Josu Zabaleta

Proustek bilatzen zituen oroitzapenak eta Francok bilatzen dituenak, beraz, iheskorrak dira, ezkutukoak, ilunekoak; ezin dira lehiatu eguneroko bizitzako, eguneroko jarduneko argi itsugarrian: **araoz** dei egin behar zaie, ametsak balira bezala, isiltasunean eta iluntasunean, kortxoz forratutako gela batetik edo trantzea nahiz ameskeria hurbil dituen gogo-egoera batetik. Xabier Olarra

Hi, edabe ustel, gauerdi-belar anitz nahasturik osatua, Hekatek hiru **araoz** zitaldu, madarikazioz kutsatua, hire magia berezkoak, hire indar eta eragin larriak, biezaio biziari bet-betan betiko itxiaraz begiak. Juan Garzia

Mukitsu alaenak jadetsi zuen nerbioen dantza leher zekion, eta **arao** etsitu batez jesarri zen herriaren ikurra bihurtutako zubi eskegiaren argazki erraldoiaren azpian zegoen aulkian. Josu Landa

2 *arao egin*

Harria sugeari ostu, urez beteriko urrezko katiluan sartu, Donibane gaueko ilargiaren argitan jentilaren atea islatzeko moduan jarri eta **arao egin** zuen. Martin Anso

Zakutik irribarrez atera eta begiak zabalik jaio zena ikusi zutenean senitarteko eta auzoko guztiak konjuruka hasi ziren, **arao egiten**, etxe gainera gatza botatzen, dena zerutik eroritako aingerua ematen zuen haurra babesteko asmoz. Bego Montorio

-Zergatik ez zioten kuttun batekin **arao egin**? Koro Navarro

Orduan Landolfo jaunak **arao egin** zion Jainkoaren izenean, egia esan zezan hilik zegoela esaten zuen San Frantziskoren santutasunaz, eta artean bizi zen Santa Klararenaz. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arao egin** (3)
> **araoz etxea** (3)

---

araoka *adlag* arao eginez.

Hirugarren batek bizitza osoan ez die behin ere jaramonik egin sendagileei, eta, azkenean, **araoka** eta listuka sendatzen duten emakume horietako batengana joaten da. Jose Morales

araokatu, araoka(tu), araokatzen du *ad* araoka esan.

Zurrumurrua zebilen bazekiela beteria aienatzen, hanturak desegiten, eta soin ataletako oinazeak kentzen; euriak edo urakanak geldiarazteko erregutzen zitzaion; muino-zirkulu baten gainean **araokatu** zituen ekaitzak; Selinonte-n sukarra uxatu zuen, bi ibai hirugarren baten ubidera isurarazirik. Juan Garzia

Kaldeako aztien zazpi izarrengatik, **araokatzen** haut. Juan Garzia

---

araolari *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* exorzista.

Eliza katolikoak berak aitortu duenez, azken urteotan ere, gure inguruko elizbarrutiek ofizialki exorzistak edo **araolariak** izan dituzte. ETC-entziklopedia

---

araoztar *iz* Araozkoa, Araozi dagokiona; Araozko biztanlea.

Juan Antxieta eta **Araoztarren** lanak gertutik ikustea zirraragarria da benetan. Berria - Kultura

---

ararazi, araraz(i), ararazten du *ad* aritzera behartu.

Amikuze Kantuz hor ginuen kantaldiaren bururatzeko etorria, jendearen kantuz **araraztera**. Herria

Heldu den urtean segur hobeki egin beharko dutela Kantatxotx ekitaldi denboran jendea ozenki euskaraz kantuz **ararazteko**. Herria

---

arartebidez *adlag* bitartekotzaz, arartekotzaz.

Erabilera dinamikoa dutenek, berriz, apriorizko beharrezkotasunaren izaera dakarte aldean, nahiz esperientzia bateko pentsatze enpirikoaren baldintzapean soilik izan, eta beraz, zeharbidez eta **arartebidez** besterik ez. Ibon Uribarri

---

arartedun *izond* arartekoa duena.

Gorputz guztiekiko komunak diren propietateak, orokortasunaren arabera, Jainkoaren esentzia eta, horregatik, dagokien atributu kontzeptua (Hedadura) inplikatzetik datoz, mugimenduan eta atsedenean partaide dira (modu infinitu arartegabearen izatasuna inplikatzen dute) eta modu infinitu **arartedunaren** baitan daude. Piarres Xarriton

Hortik dator naturako ordena komunean tarteko diren gorputzek (modu infinitu **arartedunaren** eduki gisa) modu infinitu arartegabearen indarrez daukatena komun izatea: mugimendua eta atsedena. Piarres Xarriton

---

arartegabe *izond* arartekorik ez duena.

Presentzia hori da estalirik dagoena gizakiarengan **arartegabea** delako eguneroko obratzean eta, zeinaren desestalpena ibilera filosofikoaren errainua bera den eta, ondorioz, baita etikarena ere. Piarres Xarriton

Hortik dator naturako ordena komunean tarteko diren gorputzek (modu infinitu arartedunaren eduki gisa) modu infinitu **arartegabearen** indarrez daukatena komun izatea: mugimendua eta atsedena. Piarres Xarriton

Helburua da "Jainkoarekiko batze **arartegabeaz** gure adimenak bereganatzen duen errealitate trinkoa lortu eta bere baitan ideiak sortzeko eta bere baitatik bere izaerari dagozkion ondorioak lortzea". Piarres Xarriton

---

arartekari *izond* bitartekaria.

Hiru langileek, sei hilabeteko greba luze baten ondotik, beren mugimendua gelditu dute eta tokiko gakoak itzuli, Laco jaun **arartekariak** ez du bazterren jabaltzea kausitu. Herria

Adigai bat besteekin ezin da lotu sintetikoki eta, hala ere, zuzenki, zeren adigai bat gainditu ahal izateko hirugarren ezagutza **arartekaria** beharrezkoa baita. Ibon Uribarri

SNCFarekilako gataskeri aterabide baten aurkitzeko, galdegiten dute hautetsiek egin ditzazten **arartekari** urratsak. Herria

Amodio hori elikatzeko eta gorpuzteko, hari buruz hitz egingo zioten oilaloka pare hura eskuratu zuen, ez dakit **artekari** ala arartekо. Xabier Mendiguren Elizegi

---

arartekaritza *iz* bitartekaritza.

Matematikak, Natur Zientziak, gizakien ezagutza enpiriko berak balio handia dute, gehienbat beharbadakoak diren baina azkenean beharrezkoak eta funtsezkoak gertatzen diren gizatasunaren helburuetarako baliabideak diren aldetik, baina, hainbestez, adigai soiletik abiatzen den arrazoimen-ezagutzaren **arartekaritzaren** bitartez besterik ez, nahi den moduan deitzen bazaio ere benetan Metafisika baino ez denaren bitartez. Ibon Uribarri

Moktada al Sadren gerrillariei gogor erasotzen zieten indar hauek Ali imamaren mausoleo ingurutik alde egin zuten, Irakeko lehen ministro lad Alauik 24 orduko su-eten bat ebatzi eta gero, Al Sistaniren bake **arartekaritzari** laguntzeko xedez. Berria - Mundua

---

arartekо **1** *iz* arartekari edo bitartekari lana egiten duen pertsona.

Arartekо baten bidez, Abetz-i galdegin nion zentinel aleman bat jo zuen frantses bat tiroka ez zezan. Marzel Etxehandi

Lehen bi puntuak bazter utzi ondoan -berenaz argi direlako- 21. 22. eta 23. Proposizioek erakusten dute ondoriorik bikainena dela Jainkoak **arartekorik** gabe ekoizten duena; zenbat eta **arartekо** kausa gehiago behar baitu gauza batek ekoizteko, hainbat eta eskasago izan behar du gauza hark. Piarres Xarriton

Ni ez naiz **arartekoa** zuen eta Jainkoaren artean. Aingeru Epaltza

Urte batzuk lehenago, Göeringen **arartekо** aritu zen Goudstikker-bilduma erostean. Javi Cillero

Dokumentuak xeheki aztertu edo miatu ondoan, lekukoen erranak entzunik, **arartekо** ziren gizonek beren erabakia eman zuten duda herrestorik gabe Orriaren alde, 1335ean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ama-Birjina **arartekо**, gau eta egun oihuz zagon Jesusen Bihotz sakratuari. Xipri Arbelbide

Hala hasi zen, Gorukiri eta herriska hartako gazteei eskola emaiten, haienganik haien mintzaira ikasiz, eta haiei gaztelania irakatsiz, geure egiteko hartan Goruki **arartekо** eta bitarteko genuela, ebanjelioaren berri jakin zezaten, gauza guztien gainetik. Joan Mari Irigoien

Zuek **arartekо** egin nauzue zuen eskariak Jaunari aurkezteko. Elizen arteko biblia

Moises, Jainkoaren eta herriaren **arartekо**. Elizen arteko biblia

Moises **arartekо** bakarra. Elizen arteko biblia

Amodio hori elikatzeko eta gorpuzteko, hari buruz hitz egingo zioten oilaloka pare hura eskuratu zuen, ez dakit artekari ala **arartekо**. Xabier Mendiguren Elizegi

Aita -enpresa bateko kargu ertaina- ez omen zuen alde, baina izeba Milagrosek egin omen zion **arartekо** lana. Aingeru Epaltza

Arartekoa Caron jauna zen, gure anai François-ren anaia, amiral Platon-en lankidea. Marzel Etxehandi

Etsitzeko egoera hortan, Portugalerat, Fatimako Andre dena Maria-rat, joanen ginela botu egiten dugu, kontzentrazio zelai batean laster heltzen bagira eta bederatziurrun bat hasten dugu, Maria **arartekoaren** besta hurbil baita. Michel Oronoz

2 ***Ararteko*** Herriaren Defendatzailearen izena.

Carlos Valerio Costa Ricako **Arartekoaren** abokatua eta gizakiekin egiten diren ikerketa saioetarako etika batzordeko kidea da. Berria - Gaiak

Administrazioek ez dute barneratu **Arartekoaren** rola. Berria - Harian

Euskararekin zerikusi duten kexuak "nabarmen" gehitu direla ageri da **Arartekoaren** txostenean: 2002an 12 besterik ez ziren jaso, eta iaz, berriz, 49. Berria - Euskal Herria

Etxetik museora lanak lekualdatu zituztenean kalteak izan zirela ondorioztatu du **Arartekoak**, Nafarroako Parlamentuari igorritako txostenean. Berria - Kultura

Arartekoak ere baliogabetzat eman zuen gobernu taldearen erabakia. Berria - Euskal Herria

Ohiko arazoa bilakatu da, **Arartekoak** atzo esan zuenez, diru laguntza horiek beranduegi banatzea. Berria - Euskal Herria

Arartekoak begi onez ikusi du Emakunderen ekimenez Eusko Jaurlaritzak 2000. urte amaieran onetsi zuen jarduera-protokoloa. Berria - Euskal Herria

Arartekoak azaldu zuen milaka pertsonek dituztela ukatuak beren oinarrizko eskubideak. Berria - Euskal Herria

1988an, euskaltzainburuorde izendatu zuten, baina kargua hurrengo urtean utzi zuen, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko **Arartekoo** egin zutenean. Berria - Kultura

Euskal Autonomia Erkidegoko **Arartekoo** Iñigo Lamarkak iazko txostena aurkeztu du; zenbait erakundek gutxi laguntzen dutela dio, eta prozedurak "ahalik eta arinen" bideratzeko eskatu die. Berria - Harian

Joseba Azkarraga Eusko Jaurlaritzako Lan sailburuaren jarrera dela eta babesa emateko eskatu dio ELAk Iñigo Lamarka **Arartekoari**. Berria - Ekonomia

Lamarkaren parean, orain artean EAEkjo **Arartekoo** izandako Juan San Martin, Xabier Markiegi eta Mertxe Agundez izan ziren. Berria - Euskal Herria

EAEko **Arartekoak** "baliogabetzat" jo du gobernu taldearen akordioa. Berria - Euskal Herria

EAEko **Arartekoak** egin duen txostenaren arabera, emakumeei gizonen pare parte hartzen uzten ez dieten alardeak eta udalen baimenak legearen aurkakoak dira. Berria - Harian

Nafarroan, **Arartekoaren** bulegoak esku hartu du zaharrei zuzendutako zerbitzuen auzian. Berria - Harian

Irakasleak eskutitz bana idatzi zien egunkari handi baten zuzendariari eta Espainiako **Arartekoari**, gertatutakoa kontatuz. Iban Zaldua

Arartekoaren ekimenak: 33 espediente abiatu ziren iaz erakundearen beraren ekimenez. Berria - Harian

Karta argitaratu zioten, eta alferrikako hitz zintzoz beteriko erantzuna heldu zitzaion **Arartekoaren** bulegotik. Iban Zaldua

· *(minuskularekin)* Espainiako **arartekoo** Enrique Mujikak adierazi du polizoia ospitaletik ihes egin eta 23 egunera aurkitu zutela, Donostian, eta adinez nagusia zela baieztatuta Marokora bidali zutela. Berria - Euskal Herria

Hala esan zuen EAEko jarduneko **arartekoo** Mertxe Agundezek atzo. Berria - Euskal Herria

EAEko **arartekoa** izendatzeko, Legebiltzarreko kideen hiru bostenek ados egon behar dute, hots, 75 legebiltzarkideetatik 45en bozak dira beharrezkoak. Berria - Euskal Herria

Nafarroako **arartekoa** hautatu beharra du Parlamentuko Erreginen Foraleko batzordeak otsail hortan. Herria

Lana XXI. mendean: etorkizunerako aukerak izeneko jardunaldia inauguratu zuen Miramar jauregian, **arartekoo** kargua hartu zuenetik egindako lehen ekitaldi publikoan. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ararteko bat (3); **ararteko batzu** (3); **ararteko egin** (3); **ararteko gisa** (3); **ararteko iñigo lamarka** (3); **ararteko iñigo lamarkak** (3); **ararteko iñigo lamarkarekin** (4); **ararteko jarririk** (3); **ararteko kargua** (3); **ararteko mertxe agundezek** (3); **autonomia erkidegoko ararteko** (3)

arartekoa aukeratzeko (5); **arartekoa izateko** (3)

arartekoak atzo (3); **arartekoak egin** (6); **arartekoak egindako** (3); **arartekoak ere** (4); **arartekoak esan** (3); **arartekoak torturaren** (3); **arartekoak txostena** (3); **autonomia erkidegoko arartekoak** (5); **dio arartekoak** (6); **ditu arartekoak** (3); **du arartekoak** (16); **jarduneko arartekoak** (3)

arartekoaren bulegoak (3); **arartekoaren izendapenak gehiengo** (3); **arartekoaren laguntza** (3); **arartekoaren ustez** (4); **da arartekoaren** (4); **eaeko arartekoaren** (10); **nafarroako arartekoaren** (3)

arartekoarengana jotzeko asmoa (3); **eaeko arartekoarengana** (4)

arartekoari ere (3); **eaeko arartekoari** (7); **espainiako arartekoari** (3)

---

arartekolari *iz/izond ipar* arartekoa.

Pauen ala Baionan, **arartekolariak** hor zeuden goiat, onerako ala txarrerako. Herria

ASG/SAGA **arartekolaria**. Herria

Zer egiten duen enpresa horrek ez da sobera argi, gehiago iduri du enpresa **arartekolari** bat dela enpresak bilatzen dituena Sony-ren kasuan gertatzen direnak. Herria

ASG/SAGA **arartekolaria**. Herria

2005 hastapenean hurbil bide bat pikoan ezarri zuen auzapezak, bi Angeluar **arartekolarirekin**, baina momentuko batasun bakoitza berean dago. Herria

---

arartekolaritza *iz ipar* arartekaritza.

Lehenik, postu berri batez aberastu da erakundea, **arartekolaritza** artistikoa segurtatuko duena, Frank Suarez donibandar gazteari esker. Herria

---

arartekotasun *iz* arartekoaren zeregina, arartekoaren lana. ik **arartekotza**.

Hiru haundiren (Alemania, Angleterra, Frantzia) bakeak du hori egin azkenean, Angela Merkel alemanak ongi eginik bere **arartekotasuna**, hunek bere kantziller berri lekua finkatzen zuela hor ederki. Herria

Baroiaren **arartekotasuna** erabakigarria izan zen gero Migel Mailuk Garrüzeko gazteluzaintza eskura zezan. Aingeru Epaltza

Zenbait urte lehenago, René Cassin jaunaren ikusten izanik, bere Pariseko etxean, euskal aterpetuen alde **arartekotasun** eske, segur gogoan dut zer harrera gozoa egin zidan, euskal herritar gisa. zenbait urte lehenago, René Cassin jaunaren ikusten izanik, bere Pariseko etxean, euskal aterpetuen alde **arartekotasun** eske, segur gogoan dut zer harrera gozoa egin zidan, euskal herritar gisa. Piarres Xarriton

Bada ere Bulgariar ministro ekipa bat Bagdaderat jina, **arartekotasun** zerbitzu zenbait egin nahiz bi parteen artean. Herria

Nik ez nuen inoren **arartekotasunik** beharko. Aingeru Epaltza

---

arartekotza *iz* arartekotasuna.

Konfesatzeko irrikan, presaka itzuli Florentziara, oskigilea besarkatu, eta arren egin zion **arartekotza** egiteko Mariarengana. Juan Garzia

Agirrek Parisen hainbeste xehetasunik gabe eman zituen kartzeletako datuak, eta nazioarteari begiraletza eta **arartekotza** galdatu zizkion. Jokin Urain

Arartekotzaren aurka. Hasier Etxeberria

Hegoaldeko gerra osteko lehen euskal liburuak Jose Artetxek eta Patxi Unzurrunzagak Pedro Rocamorarekiko egindako **arartekotzari** zor zaizkio. Berria - Kultura

Hirugarren errepresentazio baten **arartekotzarik** gabe erator baitaiteke. Ibon Uribarri

arasa 1 *iz* altzari apalduna.

Eligio ez zetzan han, bere gelan, gurasoenean baizik, huraxe baitzen altzariak zituen bakarra; gurasoek ezkondutakoan erosi, eta horren kontuz zainduak non berriak ematen baitzuten oraindik ere: ohea, **arasa**, eta bi aulki. Josu Zabaleta

Dendaren eskuinaldean, janlekua zegoen, gela garbi-garbi bat, haritz argiz egindako **arasa** batek, mahai batek eta zumezko jarleku batzuek hornitzen zutena. Karlos Zabala

Orduan hantxe geratzen zen ikusten nola zihoazen poliki-poliki **arasa**, aulkiak eta mahaia edertuz eta zurituz. Juan Garzia

Zigarro batetik zetorren kezko ekaitz bero zorabiagarri batek mugiarazten zituen **arasa** eta komoda. Koro Navarro

Bertan ziren ezkutatuta normalean etxeko **arasa** eta hormetan agerian beharko luketen argazkiak. Hasier Etxeberria

Barrualdeko gela batera pasa ninduen, dena **arasa** eta liburu. Txillardegi

Arasaren goiko apalean paperez bilduta zegoen hirugiharretik lau xerra hartu zituen. Josu Landa

Bart, azkenik, saguak hornidurak jaten ari zitzaizkidala ohartua nintzenez, sagutegi bat ipini nien **arasan**. Josu Zabaleta

Estropezu egin zuen **arasean**, Koroazioko eszenez apaindutako platerak astindu zituen, eta zizeiluaren zokotik katu argal bat atera zen tiro bat bezala. Koro Navarro

Aldi batez, sukaldeko **arasetan** ibili da, katilu eta zartaginek eragindako kalakak salatzen duenez. Javi Cillero

Zergatik daude **arasetan** botila hutsak beteen alboan errenkadan jarrita? Joseba Sarrionandia

Arasatik azal gorriko liburu bat hartuta, mutilari eman zion Louk, esanez: [...]. Koro Navarro

Ondorengo isilaldi luzean, O'Brien jaunaren hitzak entzun izan ez balitu bezala, Louk basoak hartu zituen **arasatik**. Koro Navarro

Eta armetara jo dute; aspaldiko iskiluak atera dituzte **arasetatik**, eskopeta izugarriak. Karlos Linazasoro

Arasara hurreratu, botila hartu eta kopa ertzeraino bete zuen. Edorta Jimenez

Ulrichek baxeraz eta hornizioz beterik zegoen **arasarantz** jauzi egin, eta gizonarena baino indar handiago batez hura jasorik, ateraino eraman zuen arrastaka, hura hesitzeko. Josu Zabaleta

Hori esanda, pospolo bati raixt eragin, ahoarekin imintzio arraro asko eginez pipa piztu, eta **arasa** bernizatzeari ekin zion ostera. Juan Garzia

Nola etxekoandre jatorrak, zer gerta ere, jai-aroaren aitzin bere sukaldeko **arasak** jakiz gainezkatzen dituen, hala prentsako berriemaileak ere bere kajoietan. Aingeru Epaltza

Veneziako kristal eder bat berez puskatu zen, inork eragin gabe, jangelako **arasa** gainean, egun-argiz. Josu Zabaleta

Aitak **arasa** ondoko lanpara piztu zuen. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horman, gizonaren atzealdean, **arasa** luze bat, eta botilak ilaran. Patxi Zubizarreta

Sukalde bazterretik esku bakar batez aulki bat hartu eta ageriko esfortzurik gabe haren gainean zutituz, **arasa** garai batean arakatu zuen, pipermin idor bat aurkitu arte. Aingeru Epaltza

Zurak garrasi egin zuen, atzera eginez, oholak zatitan puskatu ziren; zarata handi batek egin zuen eztanda etxean, eta barruan, **arasa** eroriaren atzean, zutik zegoen gizon bat ikusi zuten, ilea bizkarrean behera zuela, bizarra paparrean behera, begiak distiraz, eta zapi zarpak soinean. Josu Zabaleta

Paper gorriz estalita zituen hormak, zurezko **arasa** baten pareraino-edo, zeinean paratu baitzituen hainbat txarro apaingarri, etxean eskuz landutakoak. Mirentxu Larrañaga

Bada umeentzako olioa bainugelako **arasan**. Oskar Arana

3 ***beira-arasa***

Bi **beira-arasa** zeuden leihoko paretaren kontra, egurrezko kutxen gainean ipiniak.Sartu zuen etxera, zeina bereziki garbitua eta distiratsua zegoen, eta erakutsi zion Swanseako portzelanaren **beira-arasa**. Koro Navarro

Lagundu ere egin nuen makina bat museotara, berarengandik hurbil egotearren soilik, etruriar puxkaz beteriko **beira-arasa** baten islakeran Sabeth bera ikustearren. horien bidez, Peruko historia ezagutzeko parada dago, urrezko irudiak babesten dituzten **beira-arasen** ondoan Peruri buruzko informazioa jasotzen duten oholak ipini baitituzte. Joxe Austin Arrieta

Bilboko erakusketan Manterolaren argazkien jatorrizko negatiboak ikus daitezke **beira-arasetan**, erakusketarako beren-beregi tamaina handian erreproduzitu dituzten argazkien ondoan. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arasa bat** (6); **arasa baten** (6); **beira arasa** (8); **karpeta sarrerako arasa** (3); **sarrerako arasa gainean** (4)
> **leihoko arasan** (4)
> **atera zuen arasatik** (3)

---

arastiri ik **arrastiri**.

---

aratinik *adlag* ahoz gora etzanda, igerian batez ere.

Iritsi nintzenean, ahozpez aurkitu nuen anaia, iraulkatu nahi eta ezinean, hasperenka eta lurraren kontra hazka eta atzaparka; jiratu eta **aratinik** ipini nuenean, berriz, kontu egin nuen ezen mihia ahoan trabaturik zuela; eta, hala, mihia bere tokian paratzen niola, bere onerat etorri zen, apur bana. Joan Mari Irigoien

---

arats ik **arrats**.

---

aratsalde ik **arratsalde**.

---

aratsaskari ik **arrats 3**.

---

aratu[1], ara(tu), aratzen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* du *ad* arakatu.

Elbira Zipitriaren bizitzan **aratuz** . ETC-prentsa

---

aratu[2], ara(tu), aratzen *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* du *ad* lurra landu. ik **goldatu**; **laiatu**.

Sustarrak ditu, sakon askoak sarritan, eta berorietara jo behar dugu, **aratu** eta, ahal delarik, sastraka erauzi, berriro sasta ez gaitzan. ETC-prentsa

Abere trakzioa abereak zamak garraiatu, gurdiak eraman, lursailak **aratu** eta goldatu eta errota eta noriak mugiarazteko tekniken multzoa da. Horretarako erabiltzen diren

abereei lor-abere deitzen zaie; horietan arruntenak zaldiak, mandoak, astoak eta idiak izan dira Euskal Herrian. ETC-entziklopedia

---

aratuste *(orobat **Aratuste**) iz pl* inauteria.

Inauteri bera baino, **aratuste** kontuak gehiago astindu izan dira gure inguruotan, garizumako barau eta bijiliak izututa. Pello Zabala

Prestigio edo itxurazko zeregin horiek beste zeregin ezkutuko batzuen mozorro direlarik, kanpoko itxuran ere **aratusteetan** bizi dela baitirudi. Edorta Jimenez

Azkenean, adostasuna lortzeko ahalegin guztiak alferrikakoak suertatu ziren eta Bilboko **aratusteetako** jaitsiera bertan behera gelditu zen. Berria - Euskal Herria

Egun, Bilboko **aratusteak** dira mundu osoan zentsuratu dituzten inauteri bakarrak". Berria - Euskal Herria

Aratusteak iragarriko dituen kartela aukeratzeko prozeduraz. Berria - Euskal Herria

Aratusteetatik Aste Santura arteko 40 egunak hartzen ditu. Berria - Kirola

Aspek jaialdi mistoa antolatu du Tolosan **aratuste** astearterako. Berria - Kirola

Neurria hobeto hartu izan diola dirudi beste lehen aipaturikoak, honela trufa egiten dionean garizumako etorrerari: **Aratuste** manga, ardoari zanga! Pello Zabala

---

aratxe *(orobat **aratze** g.er.) iz* txahala.

Azienda hori guztia bormuak joa zegoen, animalia batzuk hilik zeutzan, behi batek atzealdean zintzilik **aratxe** bat zeraman hilik usteltzen hasia... eta nonnahi begi pare ikaragarriak isiltasunean kargu hartzen, begi torturatuak, eskuak burura eramanarazi zizkidatenak. Fernando Rey

Aratxe eta behiak entzun nituen marrumaz, ardiak aldiz marrakaz. Daniel Landart

Gaur ez dut aski lo egin, barrukian behia orroaz arizanik, **aratxea** saldu du aitak eta. Piarres Aintziart

Behor ederra edo **aratxe** ederra bezala, edo gisa horretan. Fernando Rey

Aratxe gosetuak garraiatzen zituztenean. Fernando Rey

Tadjikek eman zion lehen dirutzarekin Rivoli karrikako magasin panpox batean **aratxe** larruzko zapata zuri-beltzak erosi zituen. Itxaro Borda

Goizeko 11 orenetan, meza nagusiarekin hasiz, Aiherrako elizan, aperitifarekin segituz eguerditan, oren batean zerbitzatuko dute bazkaria: salda, xingarra piperadarekin, **aratze** errekia eta ilar xehia, entselada, gasna, bixkotxa edo izozkia, kafia eta ondokoa. Herria

Sukaldea hornitzen ere ez zuen xuhur jokatu nahi izan; **aratxeak**, zerrikumeak, bildotsak, oilaskoak, izokinak, barazkiak, arnoa... Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aratxerik gabe** (6)

---

aratxedun *izond* aratxea duena.

Pariserat abian dira Euskal Herritik hiru zezen eta behi **aratxedun** bat. Herria

Bost urtez goitiko behi **aratxedunetan**, lehen saria Frantzia behere hortako batek ukan du, bainan behi horren aita Heleta Agerrekoa izanki. ibiakoitzean behiak izanen dira bai eta ere aipatu bezala Pariseko feirian izan bost buru, erran gabe doa Sopalin Etcheverry-rena, bigarren egin duen Tony Garat-en zezena, hirugarren egin duen Pacific Lopez-en zezena eta bi behi, bat ernaria Pagode Basta-rena, hau Arzacq-etik heldu zauku eta **aratxeduna** Paloise Ticoulet Vielleségurekoa. Herria

---

aratxeki *iz* aratxearen okela.

Saskiak hustuak zirenean, ostatura joaten zen, beti berera, eliza ondokora, eta haragia eskatzen zuen, ahalaz bildotskia, edo hura ezean, **aratxekia** edo txerrikia. Elena Touyarou

---

aratz **1** *izond* garbia, xahua; nahaste edo lohitasunik gabea.

Ez dago, ordea, idazkera **aratzik**; egia hutsa da hori, hala poesian eta literaturan, nola matematikan. Jon Muñoz

Beste mundu batean, zirkuluek, musika doinuek beren ezaugarri **aratz** eta zurrunei eusten diete. Monika Etxebarria

Ur garden eta **aratza** balitz bezala irakurtzen dut haien begien atzeko pentsamendua. Pako Aristi

Ur garden eta **aratza** balitz bezala irakurtzen dut haien begien atzeko pentsamendua. Pako Aristi

Hain baitzen zinezkoa istant haietan elkarrenganako genuen sentimendua, mendigoietako ura bezalakoa, **aratza** eta garbia, eta guk aski baikenuen ur garden hartatik edatea, mozkorturik bezala sentitzeko eta bizitzako burbuila guztiak odolean sentitzeko. Joan Mari Irigoien

Zuk aurkitu zenuena materia **aratzez** egina badago, ez da inoiz ustelduko. Xabier Aranburu

Goitik behera apainduta, zitroin-lorez beztitutako emaztegai garbi eta **aratza** dirudi. Itziar Otegi

Ibaiak azalean ur garbi **aratzak** eta barnean arre zikinak daramatzan bezala, haiek fede bat erakusten zuten azaletik, eta beste bat gordetzen barnetik. Felipe Juaristi

Odol **aratz-aratza** zebilen gure zainetan. Anjel Lertxundi

Gorrota nazazu, mespreza nazazu zure arima **aratzak** nahi duen bezainbeste. Patxi Zubizarreta

Nire solaskidea -agure ile urdindu bat, sorbalda erorixe eta begiratu **aratz** garbikoa- hilotz zen zoru grisean bi ilara harantzago. Karlos Linazasoro

Brandano ezagutu dut bere ontzi txikiaren brankan, bizar elur-kolore luze batez, tunika zuri batez, begirada **aratz** batez. Anjel Lertxundi

Guztien egunean meskita usteldua eliza katoliko **aratz** izatera pasatu zela. Jon Alonso

Baina zergatik da neskato birjina **aratza**, eta beste emakumeak ez? Ibon Uribarri

Urrea, zeinarekin konparatzen baitute maitasun hau, hain da **aratza** eta distirakorra, non doi-doi eusten baitiote begiek. Joan Mari Lekuona

Sentimendurik gorenak, **aratzenak**, gizakiaren baitan sakon-sakon barneratzen den musika batek askatuak. Alberto Ladron Arana

Naturaren joritasun itogarriaren aurrean, araztasunik **aratzena** eta sinpletasunik erabatekoena bilatu nitian. Jon Muñoz

Beheko sotoan botiloi bat bentzeno tekniko aurkitu nuen, ehuneko 95 **aratz**. Juan Garzia

Haran gaineko zeruak urdintasun **aratza** zeukan. Bernardo Atxaga

Isiltasunak, danborren durundiaren eta jendearen etengabeko marmarraren ondoren, inoiz baino **aratzagoa** zirudien: hala nola urak, harri eta hondar pilaketa gurutzatu ondoren, txuriagoa ematen duen. Bernardo Atxaga

Sopranoaren ahotsa "kristalezkoa eta **aratza**" dela dio. Berria - Kultura

2 (adizlagun gisa)

Giroa ere epela zegoen; eta zeruaren urdina, **aratz**. Txillardegi

Zerua **aratz** zegoen, urdin betean. Patxi Zubizarreta

Lekua garbi eta **aratz** dago, eta, horretarako, neska batek egiten du lan etengabe. Edorta Jimenez

Eguzkia argi eta **aratz** zegoen: ardo zuri xume bat. Monika Etxebarria

Almuedanoa gizon guztietan azkena izango litzateke baldin eta alminarrera bihotza **aratz** eta eskuak garbi izan gabe igoko balitz. Jon Alonso

Batek desleialtasun bat egin zezakek, lotsagarrikeria bat, bai, eta are norbait hil, eta barruan garbi eta **aratz** egon litekek aldi berean. Xabier Olarra

Susmo txarren kutsu hori ezin daitekeela guztiz **aratz**, xahu eta purifikatua laga. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aratz zegoen (3); **garbi eta aratz** (4); **ugaitz eta aratz** (7)

---

aratze ik **aratxe**.

---

arau[1] *(ETCn **74.865** agerraldi)* **1** *iz* jokabidearen ardatz edo gidaritzat hartzen edo ezartzen den zera; zerbait nola egin behar den adierazteko argibidea. ik **erregela 3**; **lege**.

Aldi orotan zer den zuzen eta oker, **arauaren** bitartez jakin beharra dago, gure beharrei dagokiolako; eta ezin dugulako obligaziorik izan jakin ezin dugunari buruz. Jenaro Garate

Agureak zehazki, hurbil-hurbiletik aztertzen du edertasun hori, baina etxe horretako **arauak** sexu-harremanak debekatzen ditu; eta **araua** hausteko asmoa sortzen zaion arren, badaki horrek etxe hori putetxe arrunt bihurtuko zukeela. Ibon Uribarri

Dirua bere esku edukitzea gustatzen zitzaion, **arautzat** zeukan aldian behin hogei-hogeita hamar duro bere apetetarako gastatzea, nahiz eta jakin etxean nahitaezko ziren gauzetarako beharrezkoak zirela. Josu Zabaleta

Idatzi eta hitz egin gabeko lege batzuk badira, **arautik** baino gehiago giza-legetik dutenak. Andoni Egaña

Galdera horiek erakusten zidaten zein konplexuak eta misteriotsuak ziren nik beti ekintza sinpletzat eduki nituen Elizako hainbat **arau**. Irene Aldasoro

Ahots ozenez, herriko **arauak** eta ordenantzak eztabaidatzen zituen ahots agintari berberaz egin zuen printzeen aurkezpena. Felipe Juaristi

Desberdintasun batekin: sinestearen araberako **arauak** zituztela bere aurrekoek. Anjel Lertxundi

Eginbeharreko derrigorrezko ezinbesteko **arau** hori neuk neure buruari jarria zen. Edorta Jimenez

Ez, ezin dizugu harekin harremanetan jartzeko modurik eman, gure **arauen** aurkakoa da hori. Oskar Arana

Txarrena da salbuespen egoerak salbuespena **arau** bihurtzen duela berehala. Joxerra Garzia

Hauxe izan zen haren jokamoldearen **araua**: haurra alai eta pozik handitzen ikustea. Karlos Zabala

Ahuldadea ez da bide-makulua mundua aldatu nahi duenarentzat, ondo ikasia genuen **araua** inork irakasteko zain egon gabe. Anjel Lertxundi

Iritzi eta gustuaren modak ezartzen ditu, hizketaren mugak erabakitzen eta jokabidearen **arauak** mugalerro zorrotzez finkatzen. Xabier Olarra

Dolcinok ez zuen ezarri ez **arau** ez ordenarik, ziurretsirik baitzegoen halaxe zela apostoluen dotrina, eta gauza guztiek karitatez behar dutela. Juan Garzia

Gazteleraren **arauak** ez ziren ehun urte geroago arte ezarri. Patxi Ezkiaga

Hauek geldirik zeuden, **arauak** jarraituz baino gehiago kurrixka basatiekin odola hormatuta. Pako Aristi

Enpresako **arauak** hautsiz, argiroegi mintzatu nintzaion azkeneko hiru urte hartan isilpean neraman bizimodu ezkutuaz. Txillardegi

Eta nire bidean bazabiltza, nire **arau** eta aginduak zintzo betez, zure aita Dabidek egin zuen bezala, bizitza luzea emango dizut. Jose Antonio Mujika

-Arau batzuk badira maisu batek ere bete behar dituenak. Koro Navarro

Zuen aita David ibili zen bezala zu ere nire bideetan zintzo eta nire **arau** eta aginduak betez ibiltzen bazara, bizitza luzea emanen dizut. Elizen arteko biblia

Oinarrizko **arautzat** zeukan, Aita Sainduak Erroman behar dituela epaitu apezpikuak eta bazerabiltzan ateraldi bipil eta ausart batzuek, lotsagabearen mugak gaindituz tarteka. Piarres Xarriton

Vikingoen **araua** hausterik ez zegoen. Harkaitz Cano

Berak irakatsi zion, ikusi zuen irensten orriak, **arauak**, zenbakiak, eta berak bazekien. Anton Garikano

Kanpoko herotsen oiharra ahantzi bezain laster, Joanaren begitartearen **araua** zetorkidan golkoaren kilikatzera: non zebilen? Itxaro Borda

Elkarteak, aurrerago sortu ziren gainerako elkarteek bezala, ikurritz edo **arau** bat du, honako hau: Askoren artean

Sentipen erabat desberdina nuen orain; izan ere, gogamen eta izaera modu ia arrotz bat iruditzen zitzaidan, ia bere bidetik jarraitzen zuena eta ezin mugatu zena inolako **arautara**; ez nireetara ere noski. Xabier Olarra

Horra zertara eraman gaituen demokraziaren etsaiak borrokatzeko dena libre dela uste dutenen borroka-bideak; demokraziaren izenean demokraziaren oinarrizko **arauak** hausteko prest daudenen jarduerak. Joxerra Garzia

Etorri berritan ez baita komeni etxekoaren **arauak** pitzatzen hastea. Hasier Etxeberria

Azkenik, liburuan zehar **arau** hau gorde nahi izan dut. Esteban Antxustegi

Auzoko gainontzeko guztiek bezalaxe, duintasunarekin zerikusirik ez duten gizarteko **arau** horiek betetzen zituen amak. Joseba Urteaga

Martak gaitzespen begirada bota zion Olatzi, prozedura jarraitu beharko zenuke edo **arauak arauak** dira esan nahiko zuen begirada bat, desafio keinu batekin Martaren begien pareraino jaso zuena. Harkaitz Cano

Gainera, gure **arauak** oso zorrotzak dira, eta zu gozo eta ezti bizitzen ohiturik zaude; ezingo zenuke eraman. Juan Kruz Igerabide

Okerrena, arriskutsuena, nolanahi ere, anomia da, **araurik** eza, horrelako paradetan ahulak galtzen baitu beti: osasuna, giza harremana, gizarte kontzientzia, duintasuna, dirua, dena. Edorta Agirre

Kim ugazabak **arauak** aletu zizkion: arropa guztiak pertxa batean zintzilikatu behar ziren; erraza zen horretara ohitzea, batez ere soberako arroparik ez zenean. Harkaitz Cano

-Ez pentsa, badago **arau** bat euren mesederako pentsatuta dagoena. Jon Arretxe

Arazoa boterearen erabilerak sortzen du, ez baita beti **araua** bezain demokratikoa. Markos Zapiain

-Heziketaren oinarrizko **arauetako** bat da - esan zion. Iñaki Mendiguren

Eta betikoa, deskonpentsazioa **arau**, bai argazkietan, bai atxilotuen soslaian, bai albistearen trataeran. Iñigo Aranbarri

Horrek ez du esan nahi kanpokoa eta hertsatzailea den **araurik** onartu behar denik. Piarres Xarriton

Hala egin genuen guk ere denboraldi labur batez, Monikak bere gaztetasunarekin **arauak** hautsi eta nire etxeaz jabetu zen arte. Joxean Agirre

Eta **arauak** honelakoak izanik, nolaz baso txar bat arno beltzez kontentatu? Piarres Aintziart

Eta zergatik aukeratu ote nuen, beste **arau** bat hautsiz, Padam Padam izeneko pieza. Bernardo Atxaga

Deleuze eta Foucaulten arabera, eromena gizartearen ohiko **arauen** ukazioa izango lukek. Fernando Morillo

2 (izenondoekin)

Literatura ez da sortzen **arau** absolutu eternal batzuen aplikazio moduan, eta ez da halako arauekin juzgatu behar. Joxe Azurmendi

Lehenik, **arau** orokor gisa, zenbat eta handiagoak gorputzak, lasterragoa izaten zen haien beheraldia; bigarren, neurri bereko bi masaren artean, esferikoa izanik bata, eta bestea beste edozein formatakoa, esfera jaisten zen beti lasterrena. Koro Navarro

Arau zorrotz bat zegoen: inork ezin zuen buelta eman harik eta seinalea egin arte, eta orduan, seinalea egindakoan, denek ematen zuten buelta batera. Julen Gabiria

Baina eskaileretako euli hura mugitu ere ez zen egin Matiasek mehatxatu zuenean; horregatik pentsatu zuen euli itsua izan behar zuela edo eulien **arau** tradizionalen kontra egin nahi zuen seriotasunik gabeko eulia izan behar zuela bestela, eulien globalizazioaren aurkakoa. Unai Elorriaga

-Aizu, ba, ordutik **arau** berri asko eman ditu Euskaltzaindiak, eta gure metodologia ere izugarri aldatu da. Xabier Mendiguren Elizegi

Bi alderdi kontrajarriak, bakoitzak bere legitimitatearekin eta erabakiarekin, alde bateko legitimitateak bestearena ukatu ezinik, eta bien gainetik egongo zen epaitze **arau** unibertsalik inon ez. Joseba Zulaika

[...] trukerako metalezko bitartekoak beste produktu batzuen parean jartzea eta horregatik gezurrezko neurria eta pisua ematea legearen aurkako delitu bihurtzen zuen **arau** komunaren pean jartzea. Iñaki Mendiguren

Hori dela eta, nahiz eta euskaraz idatzi, hizkuntza ofizialaren **arau** ortografikoak hartu dira oinarri, eta idazmolde arrotzak beti zailtzen du irakurlearen lana. Koldo Zuazo

[...] non beldurrik gabe afirma baitaiteke ezen deus guti berririk eransten eta eratxikitzen diela Trentotik hedatu ziren ideiei eta **arau** moralei... Joan Mari Irigoien

Ez al daude **arau** desberdinak garai bakoitzean? Monika Etxebarria

Homeogeneen eginkizuna, berriz, HOM geneena, zera da: segmentu bakoitzean modulatzea eredu segmentuaren desberdintzearen kargu dauden **arau** orokorrak. Juan Garzia

Askatasunaren askatasunaz bestela hariko merkataritza desegingo baita, diru erabilerak betiere **arau** argiak nahi dituenez. Pello Salaburu

Arau estu samar eta derrigorrezkoen mende bizi ginen, eta arauak ez betetzea antzinako eran zigortzen zen... Anjel Lertxundi

Exotismoa da **arau** nagusia. Josu Zabaleta

Hain **arau** bitxia zenez, are estuago eutsi behar zitzaion. Ibon Uribarri

Jokoak nahiko **arau** nahaspilatuak ditu eta ez du zerikusi handirik ikastolan jolasgaraietan jolasten genuen beisbolarekin. Harkaitz Cano

Ona edo txarra denetz erabakitzeko, **arau** bakun bat darabilte: idazlanak egia izan behar du. Pablo Sastre

Harribitxi bakoitza tailatzeko edo lantzeko bidea aurrez erabakita zegoen, beraz, mendeetako jakituriak erakusten omen zuen eran, eta ez beste bate-an; egin beharrekoak nola behar zuen zehatz-mehatz finkatuta zegoen, **arau** aldaezin batzuen bidez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lagunartekoa ez bezalakoa da hau, bere lege eta **arau** jakinak dituena, eta hitzak osorik esatea eta idaztea da arau horietako bat. Koldo Zuazo

Agudo ikasi duzu oso **arau** garrantzitsu bat: no news, good news. Lutxo Egia

Sikiera zerbaiten kontra errebelatuko balitz, zerbait berezia egingo balu, araua hautsi..., bere bizitzako **arau** pertsonalen bat besterik ez balitz ere. Iñaki Iñurrieta

Alderantziz, gustura aritu izan zen betidanik **arau** debekatuak zituzten jolasetan. Jasone Osoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Estatuek edo herrialdeek beren diruei buruz truke egonkortasuna bermatzeko sortzen duten **arau** multzoari Nazioarteko Diru Sistema esaten zaio. Iñaki Heras

Kindleberger-entzat, ezin eutsi zaio nazioarteko harreman ekonomikoen izate liberalari, baldin herrialde hegemoniko batek ez badu erregela eta **arau** sail bat finkatzen eta zaintzen, nazioarteko erregimenak definitzen dituzten erregelak eta arauak: merkataritzazkoak, diruzkoak, etab. Koro Navarro

Lege idatziaren lehentasunak, beraz, ez du aterik ixten bestelako **arau** iturburuentzat. Andres Urrutia

Alferrik ekingo diote Euskaltzaindiko hizkuntza jagole guztiek batzuen eta besteen **arau** urratze askatzaile hauen gibeletik. Iñigo Aranbarri

Kontsumitzailearekiko harreman problematikoak (erreklamazioak, negozioaren errentagarritasuna murritz dezaketen maitemintzeak, mozkortze eta diziplinaren **arau**-urraketak, etc.). Edorta Agirre

Fariseuak, bestalde, beren pietateaz puzten ziren, beren errito eta **arau**-zaintzari oso atxikiak zeudenez. Joan Mari Lekuona

Goiko solairuko gelatan ohantze gogorren ilarak zeuden, eta horma bakoitzean kartel eta **arau**-zerrenda bana. Agustin Otsoa

Bitez han beren iritzi eta zaldun lege gura nagusiak, eta jan bezate beraien **arau**-agindura; nik, nire sakotontzia nirekin, badaezpada; eta zahato hau ere bai zela aurrean zintzilik; eta hain maite dut eta hain da nire kuttuna, horra, oso bake-une motxak ohi ditu, nik mila muxu eta mila besarkada eman gabe. Patxi Ezkiaga

Bere jatorriko probintziako gobernadorea, astronomian, astrologian eta **arau**-liburuen interpretazio atsedenik gabean jantzia, xakelaria, poeta eta kaligrafo ospetsua: dena utzi zuen, liburu bat eta labirinto bat taxutzeko. Juan Garzia

Bat-bateko bertsogintzaren arauak bereganatu ditu oso (doinuak, errimak, neurriak...) eta bereganatze horren ondorioz zenbait **arau** galera eta zailtasun gertatu beharrean, askeago sortu ahal izateko erabiliko ditu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mugikortasun horren ondorioz, era berean, ekoizpena oinarri transnazionalen gainean antolatzen hasi da, eta kontsumo-**arauen** mundializazioa areagotu da. Koro Navarro

Diskrezio-**arau** guztiez trufatu beharra: paper pertsonaletan induska ibiltzea, esku-poltsak zabaltzea, niri zuzendu ez zen posta ireki eta irakurtzea. Joxan Elosegi

Baina zakila barneratzeko unean, jendetasun **arauak** kontuan harturik, emazteak bere lagunari, lagun mamiari eskaini dio aukera hori. Patxi Zubizarreta

Letra larriz idazten den Artetik urrun, balio-**arauen** eskalan oso apal, at ia, merke saltzeko egindako purtzileria haietan enplegatzen zuen bere sormena. Iñaki Iñurrieta

Krafft-Ebingen arabera, erlijio eta kultura **arauetatik** amiñi bat aldentzen diren jokabide sexual guztiak "patologikoak" dira, gaixotiak, degenerazio mentalaren eta eromenaren adierazgarriak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Izua ezin baita geometria **araua** balitz bezala azaldu. Felipe Juaristi

Olioa eztiki burbuilaka ari zen eta atorra arrabiraturik, Herri Urratsen erosi taulierraitzinekoa soinean, suaren parean plantatu nintzen, deblauki, deliberatuki eta kuraiez beterik, goizaren erdia Maiteren sukalde **arauen** liburuaren bila debalde higatu nuela ahanzten saiatuz. Itxaro Borda

Eurek berdin jokatu dute, eta oso argi eta lasai mintzatu dira Irango bizimoduari buruz, bertoko agintariak errukirik gabe larrutuz, portaera-**arauak** gogor kritikatuz eta ekonomiaren egoera gaitzetsiz. Jon Arretxe

Erdi Aroan, Europa osoan zabaldu zen zalduneria; zaldunak alde batetik balentria askoren egiletzat eta beste alde batetik jokabide-**arau** zehatzen jarraitzailetzat hartzen ziren. Juan Kruz Igerabide

Hitzak desagertuak ziren eta haiekin batera gauzen esanahia, haien erabilera-**arauak**, gizakiek horien azalean marrazturiko erreferentzia ahulak. Monika Etxebarria

Horrela, bada, konfiantza handia hartu, eta autoa propagandaz eta egunkariz gero eta beteago ekartzen joan zen, zuhurtzia-**arau** guztiak ahaztuta. Fernando Rey

Gorago azaldutako iraunkortasun "**arauak**" betetzeko, honakoa hartu beharko genuke aintzat: baliabide-unitateko ateratako balioa areagotzen duten teknologiei lehentasuna ematea, ateratako baliabide-kantitatea areagotzera bideratutako teknologien gainetik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

5 ***arau-emaile***

Pozik daude Arabako Nekazari eta Abeltzainen Batasunean, hasiera batean ordezkari bakarra aitortu baitzion Errioxako Ardoaren Kontseilu **Arau-emaileak** Lanbide arteko Erakundean. Berria - Ekonomia

Egoera etikoaren eta **arau-emailearen** arteko harreman aldakorrak antolatzen ditu hegemonia hitzak. Joseba Zulaika

Hori horrela balitz, zenbait arau monastiko, arrainez elikatzera behartzen dutenak, **arau-emailearen** espirituaren kontra leudeke. Iñaki Iñurrieta

Izan ere, gramatika tradizionalak ez ditu kontuan hartzen hizkuntzaren zati batzuk, hitzen osaketa, esaterako; **arau-emailea** da, eta uste du bere zeregina arauak ematean datzala, eta ez gertaerak egiaztatzean. Isabel Arrigain

Konstruktibista sozialen ikerketek izaera deskribatzailea dute, eta arrazoiketa **arau-emaileari** ez diote lekurik egiten. Askoren artean

Alfabetoaren sistema itxia da, finkoa, **arau emailea**. Iñaki Arranz

Idazkiok ofizialtasunez jantziak eta **arau-emaileak** dira, hizkera literarioagoa dute eta hiztegia eta estiloa ere zainduagoak. Askoren artean

Arau-emailea den diskurtsoarekiko protesta. Fernando Morillo

6 ***arau-hausle***

Bere katu nazkagarriarekin lotzen bide zuen ahalmen misteriotsuak leku hartara erakarrita, bat-batean han agertu zen Argus Filch Harryren eskuinaldeko tapizean zehar, arnas hotsarekin eta eroa bezala **arau-hauslearen** bila. Iñaki Mendiguren

Eta, noski, aldean eramango du edonora bere libertino, sakrilego eta **arau-hausle** fama. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Erregimen polizial gogorrena ezarrita ere, ezinezkoa da **arau hausle** guzti-guztiak harrapatzea. Luis Elberdin

Udalak isun eder eta zentzagarria ezartzen die, hasieran, **arau-hausleei**. Aingeru Epaltza

Halatan, **arau-hauslea** zordun bilakatzen zen kaltetuarengana. Markos Zapiain

Gaiztoa naiz, **arau-hauslea**, Jeroboam Nabaten semea, esan zion bere buruari. Koro Navarro

Herrizaingoak neurria pixkanaka ezarri nahi duenez, kasua larria ez denean **arau-hauslea** ohartarazi egingo dute poliziek, isunik edo bestelako zigorrik ezarri gabe. Berria - Euskal Herria

7 ***arau-hauste***

-Nahi baduzu, nik zenbait **arau-hauste** gehiago gehi ditzaket - esan zuen Samek -. Agustin Otsoa

Argi gorriak eta **arau hausteak** datozkit gogora. Josu Zabaleta

Inolako **arau hausterik** edo jokabidearen bilakaera okerrik arrazoitu gabe aldatu zituzten graduz eta eskubideak murriztu. Berria - Euskal Herria

Lehendakaritzarako hauteskundeen bigarren txandako emaitzak bertan behera uztea aldarrikatzen da, besteak beste, "irregurlatasunak eta **arau-hausteak** » gertatu direlako eta, ondorioz, "herriaren nahia» islatzen ez dutelako. Berria - Mundua

Casciolik argudiatu zuenez, apaizak bi **arau-hauste** egin ditu. Berria - Gaiak

Arau-hauste txiki batzuk ere igarri ditut: txapelak, botak eta uniformeak, inoiz lasai, inoiz estu, inoiz garbi-garbi eta inoiz lanerako besterik balio ez dutela. Urtzi Urrutikoetxea

Halaber, eskatzen dizugu gogoratzeko magia-ekintzak, magiaduna ez den komunitateko kideak (muggleak) ohartzeko modukoak, **arau-hauste** larriak direla, Aztien Nazioarteko Konfederazioaren Sekretu Legearen 13. atalaren arabera. Iñaki Mendiguren

Izan ere, Alemania arrazoia eta araua da; eta Brasil irudimena eta **arau-haustea** ... Baina aspertu egingo zaitut, beharbada... Joan Mari Irigoien

Eta horrexegatik, alde bitatik irteera zuen pasabide handi bat zen bere etxeko garajea, eta Kodearen kontrako **arau-hauste** hura egin beharreko inon ez zuen aparkatzen. Bego Montorio

Oso helburu pobrea ukan dik nire **arau-hausteak** . Koldo Izagirre

Hogwartsen zaudeten bitartean, zuen garaipenekin puntuak irabaziko ditu zuen etxeak, eta zuen **arau-hausteekin** puntuak galduko ditu. Iñaki Mendiguren

Senarrak, jakina, ez zuen inoiz jakin **arau-hauste** haren berri. Josetxo Azkona

Banekien arauen kontra ari ginela, eta banekien **arau haustea** larriago bihurtzen zela han atzerriko kazetari bat egonik. Edorta Jimenez

Hitz bat azpimarratzea, edo are lumaz zein arkatzez zeinu bat egite hutsa, **arau-hauste** guztiz larria zen. Juan Garzia

Izan ere, gure jendarmeek honakoen lekukotasuna hartu behar izan zuten: 7 krimen, 82 delitu, 159 **arau-hauste**, 6 suizidio eta 15 auto-istripu, horietatik 3tan hildakoekin. Monika Etxebarria

8 *arau mnemotekniko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Ohar zaitez badela izenak ikasteko **arau mnemotekniko** interesgarri bat; izan ere, HClO azido hipoklorosoa da, eta formulari oxigeno bat gehituta hurrengo atzizkia duen izena lortzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezagutza garrantzitsua leloen, **arau mnemoteknikoen** eta trebakuntza-jarduera bizien bidez sendotzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Matematikan eta fisikan eskuin eskuko araua hiru dimentsioko espaziotan bektoreekin erabilitako konbentzioak ulertzeko **arau mnemotekniko** oso ezaguna da. ETC-entziklopedia

9 *arau sozial*

Norberaren usteak, aurreiritziak, jasotako informazioa, **arau sozialak** , euskararen erabilgarritasuna... hartu behar izaten dituzte kontuan. Berria - Euskal Herria

Horrenbestez, ez dago sexualitate normalik eta anormalik, osasun sexuala ez baitagokie **arau sozialei** . Luis Elberdin

esango lioke, jendea aurkitzen dudanean, lagunak edo ezagunak, ba, ni ikusteak poza ematen diela sumatzea haien aurpegietan, nire presentzia alaigarria dela haientzat, eta ez nautela konpromezuz eta **arau sozialen** indarrez bakarrik agurtzen. Pako Aristi

Jatorri soziala edo psikologikoa duen balizko behar alferrikakoena ere, oinarrizko premia latzena bailitzan senti dezake gizakiak; alegia, oinarrizko beharrak ez direla soilik naturak halakotzat ezartzen dizkigunak, **arau sozialek** hala sortu dituztenak ere badirela. Iñaki Heras

Zer nahi dugu **arau sozial** absolutuagorik? Kostako da Moisesen Dekalogoan beste bat aurkitzea, zinez halako absolutuki agintzen duena. Joxe Azurmendi

10 *arau subsidiario*

Fernando Salegi Eguzkiko kideak jakinarazi duenez, bestalde, Jaurlaritzak "ez zituen herriko **arau subsidiarioak** bete, ez ziolako Udalari obra egiteko baimenik eskatu». Berria - Euskal Herria

Dagoeneko, Arratzu-Ubarrundiako Udalak **arau subsidiarioak** aldatu ditu kanpina egin ahal izateko, eta Arabako Foru Aldundiak arauak aldatzeko baimena eman du. Berria - Euskal Herria

11 *araua hautsi*

Araua haustea ezarritako bidetik irtetea da. Luis Elberdin

Agureak zehazki, hurbil-hurbiletik aztertzen du edertasun hori, baina etxe horretako arauak sexu-harremanak debekatzen ditu; eta **araua hausteko** asmoa sortzen zaion arren, badaki horrek etxe hori putetxe arrunt bihurtuko zukeela. Ibon Uribarri

Pippinek Laugarren **Araua hautsi** zuen, biharamuneko egur anoa gehiena sutan jarriz. Agustin Otsoa

Isun ekonomikoaz gain, ondasun publikoei egindako kalteak ere ordaindu behar izaten ditu **araua hautsi** duenak. Berria - Harian

Halaz ere, azpimarratzekoa da argudio nagusia azkeneko puntuan azaldu behar duelako **araua hausteko** joera sumatzen hasia dela egungo bertsolaritzan, baita arestian aipaturiko egokieretan ere. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Utz ezazue **araua hausten** , araua gehiegikeria bihurtu denean; paira ezazue gehiegikeria, arauan sartzen denean. Iñaki Iñurrieta

Testamentuan esan zuen ezkutatu gabeko urguilu zintzoaz ziurtatzen zuela ia 40 urteko gidari bizitzan ez zuela izan istripu bakar bat ere, zen mendreena ere, ez **araua hausteagatik** isunik jaso, ez agintarien errietarik txikiena ere. Bego Montorio

-Zuek uste duzue **araua hausteagatik** utzi nuela nik bizarra... Koldo Izagirre

Vikingoen **araua hausterik** ez zegoen. Harkaitz Cano

EAEko Kontu Publikoen Auzitegiak txostenean gogoratu duenez, esklusibitateagatik dirua kobratzeko baldintzak urratuz gero, **araua haustea** litzateke eta hala jasota dago araudian. Berria - Euskal Herria

Batzuetan, ordea, **araua hautsi** eta irakurketa eten egiten da letra batetik bestera. Iñaki Arranz

Sikiera zerbaiten kontra errebelatuko balitz, zerbait berezia egingo balu, **araua hautsi** ..., bere bizitzako arau pertsonalen bat besterik ez balitz ere. Iñaki Iñurrieta

"Hitz-aspertu bat izan nahi dik hirekin", esan dit mezua ekarri didan begiraleak, dontsuokin zuka hitz egiteko **araua hautsiz** . Anjel Lertxundi

Gainera, bi herrietako bizilagunen tratua onartuz gero, jentilak ezingo zuen **araua hautsi** . Pako Aristi

12 *araua urratu*

Horretaz gain, zamatze lanak debekatzen zituen **araua urratu** izana ere leporatzen diote Espainiako Gobernuari. Berria - Mundua

Lujanbiok epaile bati keinu itsusi bat egin zion, diziplinako kirol arautegiaren 24. artikuluaren lehen puntuan azaltzen den **araua urratuz** . Berria - Kirola

Goiz batean, hala ere, **araua urratu** nuen. Anjel Lertxundi

Gainerakoetan, unibertsitateko urteak burutu zituenetik neurriko izatea hartu zuen beretako legetzat, eta zahartzeak arrazoi guti eman dio **araua urratzeko** . Aingeru Epaltza

13 *araura*

Hain segur ere, egokia du **araura** biltze hori. Jon Muñoz

Bere bihotzeko arreta guztia jarri zuen entzundakoa betetzen eta apostoluei emandako perfekzio·**araura** osorik egokitzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

14 *araura* ik **arabera**.

15 *arauz besteko*

Torturak saihesteko **arauz besteko** proposamena egin du Aralarrek. Berria - Euskal Herria

Aranak aurreratu zuen hurrengo asteetan eskubide guztien defentsan legez besteko proposamena aurkeztuko dutela Eusko Legebiltzarrean, **arauz bestekoak** Batzar Orokorretan eta mozioak udaletan. Berria - Euskal Herria

Inazio Agirrek AuBren izenean **arauz besteko** proposamena aurkeztu zuen atzo Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Berria - Euskal Herria

Eta beste zerbaitez ere bai -Elaine Winter-i begiratzen dio-: Isaacs andereñoaren inguruan lehenagotik ere baziren **arauz besteko** zenbait kontu. Oskar Arana

16 *arauz kanpoko*

Arauz kanpoko janzkeragatik ezarritako zigorra kendu dio FIFAk Kameruni. Berria - Kirola

Hizkuntz teorian garatutako maila abstraktuen arabera gramatikarik soilena eraikitzeko saioaren ondorioz, ingelesaren kasurako, hainbat hitzek erakusten duten jokabide itxuraz **arauz kanpokoa** (esaterako have "ukan", be "izan", seem "irudi"), egiazki goi mailako arauen isla zuzena dela ohartzen gara. Itziar Laka

Horretan guztian bazen **arauz kanpoko** zerbait. Ander Irizar

Artean, haur "normal" batengan espero zitezkeen **arauz kanpoko** fitskeriak usaian baino maizago egiten hasi zen: hutsegite eta pitokeriak, gezur frango, biga bostetan piper eta antzeko luzesko bat. Jose Angel Irigaray

Antjek ingurura begiratzen zuen bere aitaren mamuaren bila, beldurtuta beti **arauz kanpokoaren** itxura pixka bat zuten gauza guztietan bezala. Fernando Rey

MME Munduko Merkataritza Erakundeko Ezadostasunak Konpontzeko Organoak berretsi egin zuen atzo 2002an erakundeak Byrd Zuzenketa **arauz kanpokotzat** jo zuen erabakia. Berria - Ekonomia

Hauteskunde Batzordeak berak erabaki dezake hautagaitzaren bat Alderdien Legearen arabera **arauz kanpokoa** dela. Berria - Euskal Herria

-Oroitarazi nahi dizut ezen zure hitz horiek oso ere larriak direla eta **arauz kanpokoak**, laugarren manamenduaren kontrakoak, eta, halatan, bekatu mortalean zaudela, amari zor diozun begirunearen hausteagatik, eta... Joan Mari Irigoien

Sexu banaketa horretan, Merteuileko markesa guztiz pertsonaia **arauz kanpokoa** da; nobela osoan zehar hura da beti gertakizunen eragile eta sortzaile, eta Valmonti zein Prévani nagusitzen zaio; jokaera hori ezohikoa da eta ez dator inondik ere bat XVIII. mendeko gizarteak emakumeari ematen zion rolarekin (puntu honi dagokionez argigarria da Merteuileko markesak LXXXI. gutunean bere bizitzaz, [...]. Jon Muñoz

Txinatar prosagile batek dio unikornioari, hain **arauz kanpokoa** izatearen beraren poderioz, inork ez bide diola erreparatzen. Juan Garzia

17 *arauz kontrako*

Gustura askatuko nituzkeen berokiko botoiak, baina birritan pentsatu dut: haize leunak papar-hegala irauli eta izar horia estal zezakeen, eta hori **arauz kontrakoa** da. Urtzi Urrutikoetxea

18 *aurrekontuen urrezko arau* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Aurrekontuen urrezko araua esan diotena dago akordio horren barruan, egiturazko defizita mugatzeko araua.>>Dozena bat estatuk berretsi dute jada martxoaren 2an sinatutako akordioa, besteak beste Alemaniak, Frantziak, Greziak, Italiak, Espainiak, Irlandak eta Portugalek. ETC-prentsa

19 *hizkuntza arau*

Euskaltzaindiak **hizkuntza** arauak eman behar ditu, eta gobernuak neurri politikoak hartu euskara bultzatzeko. ez du ezartzen **hizkuntza arauak** emateko ahalmena zein erakunderi dagokion.Tradizionalki, tropo edo figuren ugaritasunean aurkitu nahi izan da literaturtasunaren ezaugarria, hots, **hizkuntza-arau** zein hizketa arruntarekiko urruntasunean [...]; baina modernitateak ezeztatu egin du teoria hori. Pello Salaburu

20 *idatz-arau* *(orobat **idatzarau**)* idazteko araua.

Idatz-arau zein askatasunerako, ez da hauen parekorik. Juan Garzia

Esaldiak edozein puntutan mozten zituen, **idaztarauak** errespetatu gabe. Joxemari Urteaga

21 *joko arau*

Iaz piztu zen polemika, Koldo Izagirre Itzulpengintza arloko finalista izendatu eta **joko arauak** sinatzeari uko egin zionean, argudiatuz ez zuela bere burua sariketara aurkeztu eta beraz absurdua zela ezer sinatzea. Berria - Kultura

Batetik, guztien **joko arau** berdinekin gainditu dituelako aurkariak, argi eta garbi. Berria - Kirola

Bertsolaritzak, biziko bada, egokitu beharra dauka garai berrietara hedabide berrietan sartuz, globalizazioaren **joko-arauak** baliatuz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ahal nuen guztia eman dut **joko arau** hauetarako. Josu Zabaleta

Besteak beste, sormenari forma emango liokeen egituraketa bat eta **joko-arau** batzuk falta izango bailituzke. Andoni Egaña

Horiek dira gizarte moderno batek eskatzen dituen **joko arauak**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Buruilaren 11ko sarraskiaren ondotik, are garbiago ikusten da Amerikar Estatu Batuek nolako tokia hartzen eta hartu nahi duten nazioarteko **joko arauen** finkatzean. Herria

Atzealdeko zangoen gainean jarri, lepoa luzatu eta, leherrak egin ondoan, lortu nuen zerbait jatea, baina haiexek ziren **joko-arauak**. Joxan Elosegi

Hi haiz **joko-arauak** aldatu dituena. Antton Olano

Beste era batera esanda, fikziozko zineman ugari diren figura horien aurrean, filmean sinesten jarraitzeko, sineste hori une horretarako baztertu eta **joko-arauez** duen jakintza bat baliatu behar du ikusleak. Josu Zabaleta

Hobbesen pentsamendua, bai De Cive-n eta geroxeago Leviatan-en, formulazio horretan oinarritzen da, eta, horren arabera, ordena politikoan garrantzizkoa legeei men egitea da, **joko-arauei**, lurreko aginteari. Esteban Antxustegi

Haiek ziren benetako espioien **joko arauak**: gibelasmo ilunak, amarru zikinak, gizakienganako mespretxurik hotzena... Alberto Ladron Arana

Praktika neoliberala kontu batean ez dator bat diskurtso neoliberalarekin: munduko ekonomiako **joko arauak** jartzen dituztenei - hau da, Iparraldeko enpresa multinazionalei - komeni zaizkien merkatuak bakarrik liberalizatzen dituzte, eta besteak ez. Iñaki Heras

22 *merkataritza-arau*

Globalizazio hori ez da gerra ondoren ezarri ziren diru-, finantza- eta **merkataritza-arauen** emaitza. Koro Navarro

23 *urrezko arau*

PSOEren **urrezko araua** da euskal auziari buruzko akordioak, edozein delarik ere, ordenamendu juridikoaren araberakoa izan beharko duela, Konstituzioaren araberakoa. Berria - Euskal Herria

Heriotza gertatu eta egun batzuetara, BBCk -eskandaluak hartu zuen oihartzunaz jabetuta- kazetarien **urrezko arauetako** bat urratu (iturriak sekretupean gordetzearena, hain zuen), eta bere informatzaile nagusia hildako zientzialaria izan zela berretsi zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Garai guztietan, eta kultura guztietan, hildakoak agurtzea eta omentzea **urrezko araua** izan da. Berria - Harian

Esan edo idazten duenean Dena txukun dago, hitzen esanahiaz abusatzen du, txukuntasunaz pentsatzen duena **urrezko arau** bat aplikatzean baitatza. Jon Alonso

Komunikazio-marketinaren **urrezko araua**: txiste bat bera ez dago edozein entzuleriaren aurrean kontatzerik. Joxerra Garzia

Indarrak alferrik ez xahutzea da Behobia Donostia klasikoa amaitzeko **urrezko araua**. Berria - Ekonomia

24 *zortzikotearen arau* *(corpusean ez dago; ETCn 23 agerraldi)*

1916. urtean, Gilbert N. Lewis-ek **zortzikotearen araua** plazaratu zuen; arau horrek dio edozein atomotarako konfigurazio elektroniko egonkorrena geruzarik kanpokoenean zortzi elektroi dituena dela. ETC-entziklopedia

Fluorraren konfigurazio elektronikoa 1s22s22p5 da, beraz, elektroi bakarra hartzea falta zaio **zortzikotearen araua** betetzeko, hau dela eta, -1 oxidazio-egoera hartzen du kasu gehienetan. ETC-entziklopedia

Halogeno guztiek bezala, elektroi bat faltan dauka **zortzikotearen araua** betetzeko, eta afinitate elektroniko altua dauka. ETC-entziklopedia

Adibide modura, **zortzikotearen araua** eta balentzia-geruzaren elektroi-bikotearen aldapenaren teoria ditugu. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitzinatu arau (8); **araberako arau** (3); **arau argiak** (3); **arau asko** (3); **arau bakarra** (3); **arau batean oinarritua** (3); **arau batek** (7); **arau baten** (6); **arau bati** (3); **arau berak** (4); **arau berberak** (3); **arau berdinak** (6); **arau berdinekin** (3); **arau bereziak** (3); **arau berri bat** (3); **arau berria** (10); **arau berriak** (34); **arau berrian** (3); **arau berriaren** (4); **arau berriei** (3); **arau berriek** (5); **arau berriekin** (3); **arau bihurtu** (3); **arau demokratikoen** (3); **arau edo** (10); **arau emaile** (4); **arau emailea** (9); **arau emaileak** (6); **arau emailearen** (4); **arau estu** (4); **arau eta agindu** (3); **arau eta balio** (4); **arau eta legeak** (3); **arau ez** (5); **arau finko** (4); **arau gisa** (7); **arau gutxi** (3); **arau guztiak betetzen** (6); **arau guztiak hautsi** (3); **arau guztien gainetik** (4); **arau haiek** (4); **arau hau gorde** (3); **arau hauslea** (4); **arau hauste oso** (4); **arau haustea** (7); **arau hausteak** (7); **arau hausteekin** (3); **arau hausteen** (5); **arau hori ez** (3); **arau horiei** (5); **arau horiek bete** (3); **arau horiek betetzen** (3); **arau horien** (9); **arau horietako** (4); **arau horrek** (15); **arau horren arabera** (3); **arau horri** (5); **arau hura** (3); **arau idatzi** (4); **arau jakin batzuen** (3); **arau jakin batzuk** (4); **arau komunikatiboak** (3); **arau modura** (4); **arau moral** (5); **arau multzo bat** (8); **arau multzoa** (6); **arau nagusia** (5); **arau orokor gisa** (3); **arau orokorra da** (3); **arau orokorrak** (9); **arau sistema bat** (3); **arau teknikoak** (3); **arau zehatzak** (7); **arau zorrotz bat** (3)

arrazoina daitekeen arau (3); **aurrera egin arau** (4); **baina arau** (9); **beste arau bat** (4); **bete beharreko arau** (5); **bi arau** (5); **bizi arau** (6); **bolkestein arau** (5); **boz arau** (3); **buruzko arau** (4); **da arau** (16); **daitekeen arau batean** (3); **dauden arau** (6); **dena arau** (3); **dira arau** (3); **diren arau** (10); **ditu arau horiek** (3); **dituzte arau** (4); **du arau** (11); **duen arau** (12); **dute arau** (4); **duten arau** (8); **edo arau** (4); **edozein arau** (5); **eraketa arau** (6); **ere arau** (11); **europako arau** (3); **ez arau** (3); **ezarritako arau** (4); **finkatutako arau** (3); **foru arau** (3); **gainerako arau guztien** (3); **hainbat arau** (11); **higini arau** (4); **honako arau hauek** (3); **ibili arau** (3); **idatzi gabeko arau** (3); **ideiak**

jin arau (3); inolako arau hausterik (3); jende arau (8); joko arau demokratiko (4); joko arau demokratikoak (4); joko arau horiek (4); jokoaren arau (6); lau arau (3); lege eta arau (10); nazioarteko arau (5); nire arau (4); oinarrizko arau zorrotzak (3); ondasunaren eta arau (3); oso arau (7); printzipio eta arau (4); segurtasun arau guztiak (3); teoria arau (3); trafikoko arau (3); urteak joan arau (5); zen arau (3); zenbait arau (8); zer arau (3); zerga arau (4); zion arau (3); zituen arau (7); zuen arau (8)

araua bera (3); araua bertan behera (3); araua bete (5); araua beteko (3); araua betetzen (5); araua dela (3); araua edo (3); araua ez da (3); araua ezabatzea (3); araua ezartzen (3); araua haustea (3); araua hausteagatik (3); araua hausten (5); araua hautsi (8); araua indargabetu (3); araua indarrean jartzen (3); araua onartu (9); azken araua (3); bolkestein araua (15); buruzko araua (3); du araua (3); duen araua (12); foru araua (5); horixe da araua (3); lehen araua da (3); oinarrizko araua (5); urrezko araua (5); zuen araua (10)

agindu eta arauak (3); arauak agintzen (5); arauak aldatu (14); arauak aldatzeko ekimen (3); arauak arauak dira (3); arauak arauak dira (3); arauak baino (3); arauak behar (6); arauak bete behar (5); arauak betetzea (3); arauak betetzeko (5); arauak betetzen ez (5); arauak betez (5); arauak denok (3); arauak dio (3); arauak edo (5); arauak eman (11); arauak ematen (4); arauak ere (11); arauak errespeta (3); arauak errespetatu behar (5); arauak errespetatu gabe (4); arauak errespetatuta (4); arauak errespetatzeko (4); arauak errespetatzen badituzte (3); arauak eta legeak (6); arauak eta printzipioak (3); arauak ez betetzea (5); arauak ez dira (5); arauak ez dituztela (4); arauak ezarri (6); arauak ezartzen (4); arauak finkatu (3); arauak finkatzeko (3); arauak hausteagatik (4); arauak hausteko (4); arauak hausten (9); arauak hautsi (11); arauak hautsiz (3); arauak jartzea (3); arauak jartzen (4); arauak kontuan (6); arauak nahi (3); arauak onartu (11); arauak ondorio (3); arauak ongi (3); arauak urratu (4); arauak urratzen (3); arauak zehaztu (6); arauak zein diren (3); arauak zorrotz (4)

arteko arauak (3); baina arauak (14); baten arauak (4); behar diren arauak (4); bete beharreko arauak (4); bolkestein arauak (3); buruzko arauak (20); da arauak (4); dago arauak (4); dagozkion arauak (3); dauden arauak (4); dela joko arauak (3); demokraziaren arauak (7); demokraziaren joko arauak (5); dira arauak (7); ditu arauak (5); dituela arauak (3); dituen arauak (4); ditutze arauak (3); ditutzen arauak (9); ditzaketen lege arauak (3); diziplina arauak (3); duten arauak (7); edo arauak (4); egiteko arauak (4); emandako arauak (3); erabilera arauak (3); erabiltzeko arauak (3); eraketa arauak (10); eratzeko arauak (3); ere arauak (3); espainiako eraikuntza arauak (3); europako arauak (7); euskaltzaindiak arauak (4); euskaltzaindiaren arauak (9); ez arauak (3); ezarritako arauak (12); gaineko arauak (6); giza parkerako arauak (4); hizkuntza arauak (4); horren arauak (4); idazteko arauak (3); in arauak (3); jarritako arauak (3); joko arauak errespetatu (7); joko arauak errespetatuz (5); joko arauak errespetatzea (3); joko arauak errespetatzen (3); joko arauak zehaztea (3); joko demokratikoaren arauak (3); jokoaren arauak (16); lege arauak aldatzeko (3); legeak eta arauak (10); nire arauak (4); niri zeure arauak (6); onartutako arauak ditu (4); portaera arauak (3); segurtasun arauak (8); zituzten arauak (4); zure arauak (11)

arauaren arabera (8); arauaren aurka (5); bolkestein arauaren (6); foru arauaren (5)

arauari jarraiki (3)

arauei buruz (5); arauei buruzko akordioa (3); arauei jarraituz (6); ezarritako arauei (3); joko arauei buruzko (6); kortesi arauei (3); oinarrizko arauei (3)

arauek agintzen (5); arauek diote (5); arauek ez dute (3); joko arauek (3)

arauekin bat (5); arauekin ez (3); joko arauekin (6)

arauen arabera egin (3); arauen aurka (7); arauen aurkako (3); arauen aurkakoa (3); arauen barruan (6); arauen bidez (6); arauen gaineko (3); arauen gainetik (3); arauen inguruan (4); arauen inguruko (3); arauen kontra (6); arauen kontrolerako institutu (3); arauen multzoa (3); bere arauen (6); biologiako arauen kontrolerako (3); diren arauen (3); dituen arauen (3); duten arauen (4); eraketa arauen (5); euskaltzaindiaren arauen (3); gizarte arauen (4); joko arauen arabera (6); konstituzioaren arauen (3); lege eta arauen (3); ligako arauen arabera (3); oinarrizko arauen (3); tour ligako arauen (3)

arauetako bat (8)

arauetan oinarrituta (6); buruzko arauetan (3); joko arauetan (3)

arauetatik kanpo (9)

arauren bat hautsi (4); zer arauren arabera (3)

araurik ez (7); araurik gabe (6); araurik gabeko (6); araurik hausten (3); araurik hautsi (3); beste araurik (3); duen araurik (3); inolako araurik (3); inongo araurik (4); oinarrizko araurik (3)

---

arau[2] *postpos* ahala. ik **arauz**[2].

- Eginen diren obren aipatzeko parada ukanen dugu egin **arau**. Herria

Gero, zuk erosketak egin **arau**, Moneo hustuko da eta hustearekin askiko duzu berriz kargatzea. Herria

Mezkiritz gainean geldialdi labur bat, oroimen gutizia hutsez: "Zer hotza!" Baina emeki emeki, Iruñera hurbil **arau**, eguzkia gaina hartzera doa. Piarres Aintziart

Eta mina zernahi bazterretara zabalduko du, aurrera egin **arau** -errezitatu zuen buruz eta azkar Stanek, ahapean hitz eginez. Lopez de Arana

Jin **arau** eta puxkak lastairaren gainean finkatu-eta, bakoitza libre zen joan-jinka ibiltzea kanpaleku animale hartan. Marzel Etxehandi

Erein **arau**, beti zerbait gelditzen da. Michel Oronoz

Gertatuak jin **arau**, egungo berriak ahantzarazi egiten du bezperakoa; eta Musa nazionalaren ekoizpenak, oroimen pribilegiatuen gogoan aldi batez egon ondoren, galdu egiten dira betikoz belaunaldi guti batzuen buruan Berria - Kultura

Gizonak doinua entzun **arau**, geldituz, -doinu hori!...-. Jose Angel Irigaray

Aurrera egin **arau**, ostera, idazlea Carmen da beti, ez Ganboa: "bere aita nola atxilotu zuten kontatu du Carmenek liburuan", "gertatu zena ezagutu ahal izan du Carmenek", "Carmenek nostalgiaz hitz eginen du"... Iñigo Aranbarri

---

arauaz *postpos* arabera.

Eta, galdetzen ziolarik bere buruari behin eta berriro norenak ote ziren galtzoin haiek, zeinak jigant batenak izan baitzitezkeen neurriaren **arauaz**, malenkonia handi batean sartu zen, hain handia, non jateari ere utzi baitzion. Joan Mari Irigoien

---

araubide 1 *iz* araudia, arautegia.

Horregatik ditugu hain gogoko ordenamendu juridikoak, lur azaleko herri guztiek **araubidea** nahiago badute ere. Pello Salaburu

Egitasmoan Nafarroaren eskumenak eta **araubidea** urratzen dira, eta nafarrei iseka egiten zaie. Berria - Euskal Herria

Kirol politikako **araubideak** proposatu eta erakundeak koordinatuko ditu. Berria - Kirola

Auzibide adina **araubide**. Berria - Harian

Eusko Legebiltzarrean ekarpenak egiteko modua zuzenketa bidez egitea da; baina, horretarako borondatea baldin badago, bilatuko ditugu **araubidezko** beste mekanismo batzuk ere, mundu guztiak aukera izan dezan eztabaidan ekarpenak egiteko. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bitariko Transferentzia-batzordeak finkatuko ditu Autonomia Erkidegoak Gizarte Segurantzaren **araubide** ekonomikoaren kudeaketa beregana dezan hitzarmen aproposak. Berria - Euskal Herria

Bide beretik jo zuen Enrique Lucas Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzaren **Araubide** Juridikoko idazkari nagusiak. Berria - Euskal Herria

Arlo horretako eskumenak **"araubide** estatalaren baitan" erabiliko direla. Berria - Euskal Herria

Hamar antropologori eskatuz gero -idatzi du Alfred Kroeberek- giza **araubide** unibertsal bat aipatzeko, haietariko bederatzik-edo aukeratuko lukete intzestuaren debekua; haietariko hainbatek, izan ere, dagoeneko espresuki jo dute hura unibertsal bakartzat. Juan Garzia

Konfiantza sor dezaketen erakundeak, fidantzen betebehar solidario edo ez-solidarioen gaineko **araubide** egokiak, hipoteken oreka berma dezaketen lege jakintsuak. Andres Urrutia

Gizateria, indarkerian bizitzen nekaturik, etsaigoetan higatzen ari baitzen; horregatik hainbat gehiago makurtu zen bere kabuz legeetara eta **araubide** estuetara. Xabier Amuriza

Hitz-dotorekeriazko **araubide** zital baten arabera eginak zituen zuzenketak: lehen "urdinkara" idatzia zuen lekuan, orain "urdinantz", "urdinsko" eta are "urdiño" zerabilen barra-barra. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alderdien Legea onartuz geroztik, Hauteskunde **Araubide** Orokorraren Lege Organikoaren 44.4 artikuluak zera dio: [...]. Berria - Euskal Herria

Nafarroaren kasuan, eta berori Eusko Kontseilu Nagusian edo horren ordezko izango den euskal autonomia-**araubidean** Gernikako Estatutua sar dadin, Konstituzioaren 143. artikuluak ezartzen duena bete beharrean, foru-organo eskudunak Nafarroako Foru Parlamentua izango du ekimena. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Toki **Araubidea** Eguneratzeko Foru Lege Proiektua aurkeztu zuen duela gutxi Nafarroako Gobernuak. Berria - Euskal Herria

Horrela jokatuz, udal hori urratzen ari da toki **araubidearen** araudiak kultur ondarea gordetzeko ezartzen dion betebeharra. Indarrik gabe uzten da jatorrian atxikipenak dituzten finantza-aktiboei aplika dakiekeen zerga-**araubidea**, baita deuseztatzen ere berorien eta Altxorraren Ordaindukoen gardentasun eza Jakinarazpena -isilpekoa dioen gainazal batean iritsi zaio- jokabide-**araubidearen** kopia batekin batera igorri diote. Berria - Euskal Herria

4 *lege araubide* *(corpusean ez dago; ETCn **75** agerraldi)*

Delitu eta falta gehiagori ezarri ahal zieten, eta zigorra ez betetzearen inguruko **lege araubidea** gehitu zuten. ETC-prentsa

Mungian zinegotzi da eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean egiten du lan, Anjeles Iztueta sailburuaren aginduetara, Azterlan eta **Lege Araubide** zuzendari gisa. ETC-prentsa

Eragozpen horiek gainditze aldera, gizarte-egoerari egokitutako erakunde hori idatzizko **lege-araubidean** jaso da, edukia zehazteko orduan oinordetzaren eragilearen borondateak erabatekoa izaten jarraitzen duelarik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainerako ordenamendua bezala, Konstituzioaren letrari eta espirituari egokitu behar zaio Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren **lege-araubidea** ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurzoruaren sailkapentzat, hain zuzen, lurzoruaren eremu zehatzak hirigintzako egiturako antolamenduaren bidez lurzoru-mota batzuen **lege-araubideari** lotzea hartuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kasu batzuetan, legeerreserba bati jarraiki dator **lege-araubidea**, baina, lege-erreserbarik gabekoetan ere, Legearen esku-hartzea bidezko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eragozpen horiek gainditze aldera, gizarte-egoerari egokitutako erakunde hori idatzizko **lege-araubidean** jaso da, edukia zehazteko orduan oinordetzaren eragilearen borondateak erabatekoa izaten jarraitzen duelarik. ETC-zientzia, zuzenbidea

"Gipuzkoako Diputazioa eta euskeraren aldeko sustapen ekintzak" (Euskararen **lege-araubideari** buruzko jardunaldietan, 1990). ETC-entziklopedia

---

araudi *(ETCn **21.677** agerraldi)* **1** *iz* zerbaiten, eskuarki erakunde baten jardunbidea antolatzen duen arau multzoa. ik **arautegi**.

Lege hauek indarrean dauden egun beretik, Erromako legeak, ordenantzak, ohitura orokor zein bereiziak, estatutuak eta **araudiak** indargabe geratzen dira, lege nagusi nahiz lege banandu moduan, lege hauen objektu diren gai guztietan. Andres Urrutia

Jaunak esan zien Moisesi eta Aaroni: "Hau da Pazko Jaiaren **araudia**: Inongo atzerritarrak ezin izanen du oparigairik jan". Elizen arteko biblia

Ingurumenari buruzko **araudiek**, antolakuntza-helburuek eta lehentasunek aplikatzen direneko ingurumenaren eta garapenaren egoera islatu behar dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

"Zailak dira beti jazarpen-kontu hauek, David, zailak eta zorigaiztokoak, baina gure prozedurak onak eta zuzenak dira, hala uste dugu, eta, hortaz, urratsez urrats jarraituko diegu, **araudiaren** arabera. Oskar Arana

Gainera, **araudian** ez dago kasu hori aurreikusten duen artikulurik. Itziar Otegi

Berdintsu gertatzen zaigu kirol baten **araudiarekin** ere. Patxi Altuna

Tranbiako azken bagoian igo naiz edozelan ere, indarrean dagoen **araudiaren** arabera. Urtzi Urrutikoetxea

Kofradiaren **araudia** mundu perfektua da, teorikoki oso demokratikoa. Markos Zapiain

Banan-banan hasi nintzaion **araudia**, buruan sortu ahala, aletzen. Inazio Mujika Iraola

Priore nagusi bat dute buru eta haren agindu eta **araudiak** obeditzen dituzte begirunez menpeko prioreek eta Ordenako beste anaia guztiek. Askoren artean

Guztiek zin egin zuten, aizkoraren gainean, piraten **araudiekiko** menekotasun erabatekoa. Juan Garzia

Hortik atera baitzuten Apezen Konstituzio Zibila, edo Constitution Civile du Clergé delako **araudia**. Piarres Xarriton

Ez ditugu piezak ezagutzen, ez joko-taula, ez **araudia**. Fernando Morillo

Araudiak ziren, kopuru-zerrendak. Joxan Elosegi

Fresnes-emakumeak espetxeko zuzendaria bereziki zorrotza zen segurtasun **araudia** ezartzen, eta horretara makurrarazten zintuzten. Jokin Urain

Hain barregarri zegoen bere aurpegi txiki haserreari seriotasun-airea emateko alferrikako ahaleginak egiten eta hatza luzaturik, ezen zaintzako soldadu batek, **araudia** hautsiz, ahopeka esan baitzion aretotik irtetean: Jose Morales

-Elkarte hori da apez multxo bat bainan ez dira bakarrik apezak, ez da apezek egina bakarrik, baziren laiko batzuk ere, eta beti bere **araudietan** idekia da laikoeri ere. Menane Oxandabaratz

- **Araudia** bete behar da, Angiolillo jauna. Koldo Izagirre

Irizpide honekin bakarrik berma daiteke zigor **araudietan** komunitatearen interes guztiak ordezkatuko dituen bidea. Juan Martin Elexpuru

Behin sartu ondoren, kristau-soldaduak "**araudien** arabera" egin behar du gerra. Iñaki Mendiguren

Milizianoaren ekintza enigmatikoak ez du inolako justifikazio militarrik ez etikorik ere (etika **arauditzat** ulertuz gero). Joseba Zulaika

Unibertsitate hartako **araudiak** ez baitzituen onartzen erreinutik kanpo erdietsi titulu arrotzak, Azpilkuetak behin batean irakasle-ordezko baten lanik baizik ez zuen egin ahal izan. Piarres Xarriton

Sekulan ez duzu aurkituko zola hori kanpoan, gauzetan, egiteko modu batean edo bestean, kanpoko **araudietan**. Joan Mari Lekuona

Futbolfoboen talde txiki hark bere lider erabatekoa zeukan: hark idatzia zen **araudia**, hark agintzen zuen taldean. Joxerra Garzia

Neskatxa bakoitzak hamabi hilabete izaten zituen bere burua atontzeko, Asuero erregearen aurrera agertu aurretik -emakumeen **araudiak** hala agintzen baitzuen-. Jose Antonio Mujika

Sudurrak zapala eta uzkurra behar du: hola dio **araudiak**. Pablo Sastre

Orduan, ez zedin ezezta holako joko pollita, legea edo **araudia** aldatu diote: bost moldeak hor daude beti, baina ez da bostetan ber pilotaria. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 (izenondoekin)

Begira, guk oso **araudi** zehatzak zeuzkaagu, motibo politikoentzat salbuespenik gabe. Koldo Biguri

Baina berehalakoan errefusatu zuen ideia: Afifi andereak ez zeukan **araudi** militarra hausterik, eta haren arabera gerrak iraun bitartean alokairuek lehengo-lehengoak izaten jarraitu behar zuten. Patxi Zubizarreta

Demokrazia (Rousseauren zentzuan) geurean behingoz abian jartzeak, **araudi** berri bat eskatzen du, ahalik eta onarpenik zabalena izango duena. Markos Zapiain

Enpleguko pentsio osagarrien sistemak ezartzea sustatuko dute, horientzat **araudi** propioa eginez, banakakoetatik aparte Berria - Harian

Boutros Boutros-Ghaliren iritzian, baina, "jokaera horiek Nazio Batuen **Araudi** nagusiaren hauste bat dira, eta diplomatikoen lanari eragozpenak sortzen dizkiote". Berria - Mundua

Gaur bilduko da Kutxako Sorrera Batzarra, **araudi** berriek eskatzen duten gobernu organoen berrikuntza amaitzeko. Berria - Ekonomia

Izan ere, **araudi** zaharren arabera, eta batez ere Inozentzio III.ak deitutako Letrango33 Kontzilioaren ondoren, aitorpen bat jakinarazten zuen apaiza funtziogabetu egiten zuten berehala, eta espetxe betikora zigortzen. Juan Martin Elexpuru

Ez bakarrik legeak hala agintzen duelako, batez ere EAEn dugun **araudi** nagusiak hala agintzen duelako, eta EHUko estatutuek ere halaxe agintzen dutelako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Beti, beti, **araudi** sekretu baina antzeman erraz bati jarraituz egiten zirela trukaketak, eta ez, Ana Morenak arbelean arinkeriaz idatzi bezala, inolako ordenurik gabe? Karlos Linazasoro

Niri inoiz ez litzaidake gogoratuko saio sadomasokista bat finantza-aktiboei buruzko **araudi** berri baten mozorropean aurkeztea. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

araudi aldaketa (11); **araudi aldaketak** (3); **araudi aldaketaren** (3); **araudi bat** (20); **araudi batzuk** (3); **araudi berri** (7); **araudi berri bat** (3); **araudi berria** (44); **araudi berria indarrean** (5); **araudi berria jarri** (3); **araudi berriak** (29); **araudi berriarekin** (5); **araudi berriaren** (7); **araudi berriari** (3); **araudi egin** (3); **araudi guztiak** (6); **araudi hori**

(11); **araudi horiek** (7); **araudi horrek** (9); **araudi horren** (8); **araudi horren arabera** (3); **araudi horretan** (3); **araudi orokor** (3); **araudi orokorra** (6); **araudi orokorra egin** (3); **araudi propioa** (4); **beste araudi** (5); **buruzko araudi** (4); **europako araudi** (8); **europako araudi berriak** (4); **inguruko araudi** (4)

alderdiei buruzko araudia (3); **araudia aldatu** (19); **araudia aldatzeko** (9); **araudia bete** (12); **araudia bete behar** (4); **araudia betetzeko** (5); **araudia betetzen** (10); **araudia betetzen ez** (3); **araudia da** (3); **araudia egin** (3); **araudia erreformatzea** (3); **araudia erreformatzearen** (3); **araudia errespetatzen** (3); **araudia gogortu** (3); **araudia hausten** (3); **araudia hautsiz** (3); **araudia indarrean** (5); **araudia onartu** (10); **araudia urratzen** (5); **barne araudia** (7); **bolkestein araudia** (3); **egutegia eta araudia** (3); **eusko legebiltzarreko araudia** (3); **ezarritako araudia** (3); **garatuko duen araudia** (3); **garatzeko araudia** (4); **gure araudia** (3); **indarrean dagoen araudia** (7); **inguruko araudia** (4); **isunen araudia** (3); **jaurlaritzaren araudia** (3); **legea garatzeko araudia** (3); **legebiltzarreko araudia** (8); **legebiltzarreko araudia aldatzeko** (3); **nazioarteko araudia** (4); **sare elektrikoen araudia** (5).

araudiak dio (9); **araudiak dioenez** (3); **araudiak egin** (4); **araudiak ez du** (10); **araudiak ezarritako** (3); **araudiak onartzen** (3); **araudiak zehazten** (6); **araudiak zehazten dituen** (3); **barne araudiak** (6); **dagoen araudiak** (3); **europako araudiak** (9); **eusko legebiltzarreko araudiak** (3); **indarrean dagoen araudiak** (3); **legebiltzarreko araudiak** (8)

araudian oinarrituta (4); **lege araudian** (3)

araudiarekin bat (3)

araudiaren aldaketa (4); **araudiaren arabera** (33); **araudiaren barruan** (7); **araudiaren erreforma** (8); **araudiaren kontrakoa** (3); **barne araudiaren** (3); **indarrean dagoen araudiaren** (4); **legebiltzarreko araudiaren** (3); **nazioarteko araudiaren** (3)

europako araudietan (3)

araudiz kanpoko (5)

---

araudun *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) izlag/iz* arauak dituena.

Kaosaren, betierearen edo absurdoaren ereduak arau ororen gainetik daude; kosmosa, denbora eta logika dira **araudunak** eta legepekoak. ETC-literatura, saiakera

Horrela, **araudun** eta legedun estatua izateak, zuzenbidezko estatuak, ez du zuzena denik erran nahi. ETC-prentsa

Mutur batean badaude familia **araudunak** (arauak guztien artean jarriak izan daitezke, edo patriarkak inposatuak), beste muturrean beste mota bateko familia bat dugu, ez ezinbestean gatazkatsua, sozializazio-funtzioa gaizki betetzen duena seme-alaben eskola-errendimenduari dagokionez. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arauemaile *izond* araua ematen edo finkatzen duena.

Orotariko Euskal Hiztegia "deskriptiboa da, eta ez **arauemailea**". Berria - Harian

Lege ez diren ebazpenak ere inpugnatu daitezkeela argudiatzen du Auzitegiak, baina horretarako akordioek **arauemaileak** izan behar dute. Berria - Euskal Herria

Bere asmo bakarra, zuzen eta oker dauden formak bereizteko arauak ematean datza; hortaz, behatze soiletik arras urrundua dagoen ikaskizun **arauemailea** da, eta horrenbestez, haren ikusmoldea estua da ezinbestez. Isabel Arrigain

Filosofia morala hiru esparru nagusitan bana daiteke: teoria etikoak (edo etika **arauemailea** edo normatiboa), etika aplikatua (edo etika praktikoa) eta metaetika. Askoren artean

Liburu hau, ordea, ez da hizkuntzalaritza **arauemailearen** eremukoa. Lourdes Oñederra

Azkeneko bide horretatik joaz, zientzia askori zabaltzen zaie atea -psikologia, antropologia, gramatika **arauemaile**, filologia eta abarri-; baina guk linguistikatik garbi-garbi bereizten ditugun zientzia horiek, okerreko metodo baten kariaz, aztergai har lezakete mintzaira. Isabel Arrigain

Akademia **arauemailerik** ez dugunez, eliz jende eta pertsona ikasiek elkarlanean jardun behar lukete -herriarenganako maitasun apurrenik balute- gure nazio literaturako anabasa zuzentze alde. Koldo Zuazo

Filosofiak -"kontzientzia **arauemailearen** zientziak"- inoiz ez du mundu enpirikoa bera ikertzen, ezta balio enpirikoak ere, hauen aurrebaldintzak edo posibilitatea baizik. Joxe Azurmendi

Horrek fonetikaren egiteko deskriptiboa gainditu egiten du, ikuspegi **arauemaile** batetik aukera guztien artean hizkera estandarrerako egokien dena hautatzea baitu helburu. Lourdes Oñederra

Liburu hori idatzi zuenean estetika psikologiko bat landu nahi zuen Worringerrek; garai hartan nagusi zen estetika **arauemaileari** ("artearen zientziari", artelan ideal absolutu, betiereko eta unibertsal batekin lotzen duen araudi bat bezala ulertuz) kontrajarri nahiz. Josu Zabaleta

Arrazoimena **arauemaile** bihurtzen da bere izatasun abstraktuaren kariaz. Piarres Xarriton

---

arauemailetasun *iz* arauemailea denaren nolakotasuna.

Azkeneko bi mendeotako artearen historian kontzeptu hau baliatu izan den guztietan, Edertasunaren teoria bat izan da estetika; teoria zientifikotzat hartu nahi izan da askotan, eta askotan arauemaile ere izan da, objektibotasunaren eta **arauemailetasunaren** artean zabuka ia beti. Josu Zabaleta

---

arauera ik **arabera**.

---

araugabe *izond* araurik ez duena.

Egoera **araugabea** sortu zen orduan, herrialde jakin batzuetako diruak dibisa merkatuetan libreki edo flotazio askean zebiltzan artean, beste batzuk, berriz, dolarrarekiko parekotasunari eusten baitzioten. Iñaki Heras

Inora ez daraman eremu **araugabea** besterik ezin da sortu horrela", gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

---

araugabetu, araugabe(tu), araugabetzen du *ad* araugabe bihurtu.

Aldi baterako kontratazioaz larregi baliatu, lan erritmoak areagotu, lanaldia luzatu edo **araugabetu**, eta segurtasun nahiz osasun arloan egin beharreko inbertsioak albait luzaroen egin gabe uzten dituzte. Berria - Ekonomia

Baina, epe luzera, prekarietatea areagotuko litzateke, eta orain arte urte askoko borrokaren ondoren lortutakoa **araugabetu** egingo luke. Berria - Ekonomia

---

araugabezia *iz* araurik eza.

Bezeroenganako obligazioak baditugu, eta horrek ditu **araugabeziak** eragiten. Berria - Ekonomia

---

araugai *iz* arau egitasmoa.

Horretaz gainera, Antzinateko eskualdeak **araugaia** aurkeztu zuen Onomastika Batzordeak, eta Hiztegi Batuko b-berriz arteko hitz zerrendari eginiko oharren eztabaidarekin jarraitu zuten. Berria - Kultura

Atarikoan, horratio, legea zein eta zer-nolakoa izan eta horien ondorioak **araugai**. Andres Urrutia

---

araugile **1** *iz izond* araugintzan aritzen den pertsona.

Azken batean, ortografian erabaki bakoitza finkatuta gelditzen da betiko (edo hizkuntzaren **araugileek** berrikuntzaren bat onartu arte behintzat). Lourdes Oñederra

Eta jardungo dugu lurralde baten (aita lurraren) kontra, lurraren eta jendeen amorez; izen zikinen kontra, ur garbiaren amorez; erdalgintza erdara-sartzaile eta euskalgintza euskara-saltzaile eta **araugilearen** kontra, gure euskara honen amorez. Iñaki Segurola

2 *izond* arauak egiten dituena.

Bere botere ekonomikoaren subiranotasuna galdua du gehienbat, nahiz eta oraindik ere ahalmen **araugile** zerbait eta bere subjektuen gaineko kontrol erlatibo bat gordetzen dituen. Joseba Zulaika

Patxi Zabaleta euskaltzain eta idazleak egun dagoen "idazle uholdeak" sarrera behar duela azpimarratu du, "akademia batek, **araugilea** den neurrian, ikuspegi askotako ekarpenak behar dituelako". Berria - Kultura

---

araugintza *iz* arauak egitea edo ematea.

Europar Batasunak arau teknikoak, fiskalak, finantzetakoak eta erregulaziozkoak ematen ditu -kritika liberalaren arabera, protekzionismo mozorrotua da **araugintza** hori-, eta, nolabait ere, estatuen subiranotasuna nazioez gaindiko mailan berrosatu nahi du. Koro Navarro

Erakunde hau hizkuntzaren **araugintzaz**, normatibizazioaz alegia, arduratzen da, eta ez normalizazioaz. Pello Salaburu

Euskaltzaindiari dagokiola euskararen **araugintza** akademikoa, legeak hala aitortzen diolako, nahiz oraingoz politikari batzuek ez diren, antza denez, honetaz jabetu. Pello Salaburu

Euskaltzaindiaren **araugintzaren** ibilbideaz pentsatzen jarrita, esaterako, esan genezake salbuespen nabarmena izan dela *bainaiz, baitator, baikaude* idazkerak artamendatuz bait- aurrizkiari beregaintasuna kendu dion ARAUA. Lourdes Oñederra

Ez litzateke ona izango akademia arazoetan ordezkoak aurkitzea zaila ez baldin bada, ez baita gauza bera gertatzen **araugintzan**: ez litzateke erraza izango Euskaltzaindiak historian zehar bete izan duen papera beteko lukeen beste elkarteren bat aurkitzea. Pello Salaburu

Euskara batuaren **araugintza**: 1968-1978 epea Koldo Zuazo

---

arauhauste *iz* araua haustea.

Ukrainako 225 hautes-barrutietan banatu ziren 12.000 nazioarte behatzaileek, haatik, **arauhauste** gehiegirik ez dutela antzeman zehaztu zuen atzo Europan Segurtasun eta Kooperaziorako Erakundearen behaketa misioko arduradun Brice Georgek. Berria - Mundua

---

arauka *adlag* adierazten denaren arabera.

Bideak idekitzen dituzte gazbidearen ezartzeko eta bixtan dena berriz hesten **arauka**. Herria

Aurten Korrika urtea baita, karia huntarat bertze ekintza batzu ere asmatuak dira huni buruz eta **arauka** emanen dauzkitzuegu xehetasun guziak. Herria

---

araukaria *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi) iz* konifero handia, enborra zuzena, adarrak zeharretara jarriak eta ezkata formako hosto berde iraunkorrak dituena *(Araucaria sp.)*.

Araukaria "Araucariaceae" familiaren "Araucaria" generoaren landareen izen arrunta da. ETC-entziklopedia

-Zuhaitz horiek **araukariak** dira, Cifuentes. ETC-literatura, saiakera

Itsasotik udako haizea heldu da, karriketan sartzen da, etorbide lerrozuzenetan, zirimolaka hasten da lorategi txikietan eta dantzan jartzen ditu palmondoak eta **araukaria** handiak. ETC-literatura, saiakera

Urrutian, ibarrean, pinu altuen tartean, lur urratu zahar bat bistaratu zuen, zeinaren berde eztia argiz betetzen baitzen **araukaria** ilunbetsuen artean. ETC-literatura, saiakera

Ni liluratuta geratzen nintzen magnolien loreekin eta haien hosto garbi distiratsuekin, eta baita nik zuhaitz eskeletoa esaten nion **araukariarekin** ere. ETC-literatura, saiakera

Montalbanok bide hartatik jo zuen, eta handik pixka batera, **araukaria** eta basa-belarrez beteta zegoen baso gisako baten erdian aurkitu zen. ETC-literatura, saiakera

Izarren lekukotasun mutuaren azpian aurrerago altxatzen zen beste itzal handi baterantz egin zuten, lasterketa isilean, **araukaria** bakartiaren aldamenetik igarota. ETC-literatura, saiakera

Baina, bide arrastoei eta **araukariari** begira, Espetxean sar dezatela, erantzun zuen. ETC-literatura, saiakera

Esate baterako, Tinquilco aintzira eta Chica, Verde eta Del Toro aintziren artean zazpi kilometroko bidea dago, ia 700 metroko desnibela, eta ur-jauziak, basoak eta **araukaria** bertako zuhaitz mota ikus daitezke. ETC-prentsa

Araukaria baten atzetik azaldu zenean gustatu zitzaidan Josep Llimona egileak diseinatu zuen oinarriko bankua. ETC-prentsa

c) Ozeano Bareko kostaldearen hegoaldean, Biobio ibaitik Patagoniaraino, klima ozeaniko epela dago: urtean 2.000 mm baino gehiagoko prezipitazioak izaten dira, eta basoak sarriak izan ohi dira (**araukariak**); horregatik, baso horiek egur-erreserba garrantzitsuak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arauketa *iz* araugintza.

Ingurumenarentzat kaltegarriak izan daitezkeen jarduera eta substantzien aurretiazko ebaluazio eta kontrola, baimena, **arauketa** edo galarazpena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bi delitu hauen arteko probabilitate-ezberdintasun txit handiak eskatzen du hauen **arauketa** oinarri ezberdinekin egitea: [...]. Juan Martin Elexpuru

Errusia komunistan ugazaba pribatuen likidazioaren ondoren sindikatuen **arauketa** etorri zen bitartean, Alemania nazional sozialistan, berriz, sindikatuen likidazioaren ondoren ugazaba pribatuen **arauketa** etorri zen. izadi ez-gizatiarraren gaineko boterearen gehitze potentzial izugarri horren prezioa langileen **arauketan** proportziozko torloju-biraketa izan zen. Iñaki Mendiguren

Teknologia modernoak mekanizazioa edo **arauketa** ekarri zuen, eskulangileena ez ezik, baita hauen ugazabena (nazionalizazioa, etab.), herri-administrazioarena ("burokratizazioa") eta politikariena (alderdi-diziplina). Iñaki Mendiguren

Lan araudien kontuan, berriz, Alemanian indarrean dagoen **arauketa** zorrotza nabarmen malgutzeko planteamenduak egin dituzte CDU eta CSUk. Berria - Mundua

Itzulera gabeko prozesuak, amaigabeko **arauketak**. Xabier Arregi

Lanpostuak sortzeko arazoaren iturritzat jo izan da keynesianismoaren garaiko zurruntasuna: lan-merkatuen gehiegizko **arauketa** eta sektore publikoaren nagusitasuna. Iñaki Heras

Garai hartako anglo-eskandinaviar planteamendua erdibide bat aurkitzeko ahalegina zen, enpresa pribatua eta gizarte-justiziaren interesetan gobernu-**arauketa** konbinatzeko proba eginez. Iñaki Mendiguren

Industri langileen auto-**arauketa** iraunkor hori seinale iluna baldin bazen, izua sortzen zuen ikuskizuna ere bazen Mendebaldeko klase ertaina Mendebaldeko langile-klase industrialak luzaroan jarraituriko bidea hartzen hasten zela ikustea. Iñaki Mendiguren

---

arauko *izlag* araberakoa.

Hargatik, gaztiguak justua eta ekintzaren **araukoa** behar du, eta estatua ezin da egoeraz balia bere mendeku pribatuaren obratzeko, lege publikoaren bizkar. Itxaro Borda

---

araupean *adlag* arauen mende.

Gizakiek, azken buruan arrazoiz jokatzen baitute, beren aurreiritziak berak ere **araupean** jartzen dituzte. Iñaki Iñurrieta

Araupean sortzen trebe den hura baita bertsolaria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

araupeko **1** *izlag* arauen mendekoa.

Haien bizitza nirea bezain **araupeko** eta aspergarria izan zitekeen. Xabier Mendiguren Elizegi

Araupeko bizitza daramatenen oinarriak lauki baten irmotasunez sendo iraun dezan, aipatutako ermitauen, monjeen eta kalonjeen hiru Ordena erlijiosoei, Jaunak egun hauetan laugarren erakunde erlijioso bat gehitu die. Askoren artean

2 *izlag* gurarosteez eta soldaduez mintzatuz, arau zorrotzen eta botere zentralaren mende dagoena. ik**erregular 7**.

Egia da kirgizak ez direla batere iaioak gerra kontuetan, gehiago direla gaueko lapurrak edo karabana erasotzaileak **araupeko** soldaduak baino. Karlos Zabala

Gaur egun esaten dugu mugatu beharra dagoela **araupeko** tropen kopurua. Iñaki Iñurrieta

---

araupetu, araupe(tu), araupetzen du/da *ad* araupean ezarri.

Ohitura hori aldatu egin zen gerra horiek **araupetu** zirenean; handik aurrera ordenaz egin ziren, eta magistratuaren ardurapean. Iñaki Iñurrieta

Nafarroako Volkswagenek joan den ostiral arratsaldean enplegua **araupetzeko** espedientea aurkeztu zuen. Berria - Ekonomia

Europako Batasunetik kanpoko langile atzerritarren egoera **araupetzeko** Espainiako agintariek kontutan hartzen duten irizpide bakarra ekonomikoa den bitartean, "porrota" besterik ez dute izango. Berria - Harian

Geuk, emakumeok, gizonezkoek baino errazago daukagu familia egitea, ez bakarrik biologikoki zailtasunik ez daukagulako, baita adoptatzeko edo etxean daukagun errealitatea **araupetzeko** traba gutxiago jartzen dizkigutelako ere. Berria - Harian

Ni beti izan naiz prostituzioa **araupetzearen** aldekoa, baina Europan egin direnak ikusita, orain ez daukat batere argi zer egin behar den. Berria - Harian

---

araupetze *iz* araupean ezartzea.

Proxenetak izan dira **araupetzea** eskatu dutenak, merkatua emakumeen gorputzez patxadaz hornitzeko. Berria - Euskal Herria

Prostituzioa **araupetzeari** buruz edozein erabaki hartu aurretik, agintariek jardun horretan dabiltzan emakumeekin hitz egin beharko lukete. Berria - Harian

Beste askok irmotasun berarekin esaten dute prostituzioa emakumek sufritzen duten esplotazioaren adierazlea dela, eta ez dute **araupetzerik** nahi. Berria - Harian

Prostituzioan dabiltzanek, bestalde, **araupetze** hitza erabiltzen dute aldi oro, ez legeztatze hitza. Berria - Harian

---

araura ik **arabera**.

---

araurren *iz* bukaera, muturra.

Gogoko ditu errusiarrak esapide gordinak!, eta norbaiti goitizena jarriz gero, ezizen hori eramango dute haren ondorengoek ere, halaxe deituko diote lan-sasoian eta erretiroa hartutakoan, halaxe esango diote Petersburgen zein munduaren **araurrenean**. Jose Morales

Gauza bat da kamioi baten azpian leherturik datzan gorputz baten bistan odolezko malkotan ondoeztea, ezin gehiagoraino alditxartzea eta sufrikarioaren **araurrenetaraino** amiltzea; eta beste bat, oso bestea horratik, gertakari "normal" edo "estatistiko" gisa ikustea: kamioiak ez dakit zenbat tona, gorputzak hirurogei kilo; beraz, kamioia osorik eta gorputza xehatua. Iñaki Segurola

---

arautegi *(ETCn **3.826** agerraldi)* **1** *iz* araudia.

Gure burua edo kontzientzia **arautegi** bat da: egiak zernolako zer izan behar duen, edozein obraren ongiak edo ederkiak zer izan behar duen, a priori daukagu. Joxe Azurmendi

1976. urtekoa da oraindik indarrean dagoen **arautegia**. Berria - Harian

Bere gizonek eta berak ordena zaintzeko ardura zuten, eta, horretaz gain, kexak entzun eta **arautegiak** betetzen ote ziren begiratu behar. Karlos Zabala

PSOEri egotzi dio **arautegia** taxutzea "lan merkatua nola dagoen gogoan hartu gabe". Berria - Euskal Herria

Horren ondorioz, Bideko Segurtasun legea eta **arautegiak** aldatuko dira Hego Euskal Herri osoan. Berria - Euskal Herria

Arautegiak ez dira horren erraz aldatzen. Berria - Euskal Herria

Arautegiak argi eta garbi esaten du prebentzio neurriak derrigor hartu beharko direla lantegietan, eta maila horretan lan ikuskaritzak eta Osalanek dute hor agindutakoak betetzen direla bermatzeko ardura. Berria - Euskal Herria

- **Arautegiak** ematen didan ahala dut, zuzendari jauna. Koldo Izagirre

Moisesen legeak dioenez eta beraien **arautegiak** agintzen duenez, apaizak eta lebitarrak nor bere tokian ari ziren: lebitarrek odola eman eta apaizek isuri. Elizen arteko biblia

Arautegiak eta zuhurtziak agintzen dutena alde batera utzi duzu, baina moralki ez zara gaizki portatu. Xabier Olarra

Nafarroako Emakumearen Institutuak du **arautegia** egiteko ardura. Berria - Harian

Sindikatuan bertan kideek erabili ohi duten hizkera androzentrikoa delako, hau da, gizonak soilik islatzeko joera dutelako, LABek Izena duen orok dauka bere izana izeneko **arautegi** edo protokoloa egin du. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Atletismo Federazioak bere **arautegia** aldatu du berriki, eta Espainiako Atletismo Federazioak ezartzen dituen arauekin egin du bat. Berria - Kirola

1920an argitaratu zuen bere **arautegia**, eta hauxe zioen 6. Artikuluak (in Euskaltzaindiaren sortarauak 1920: 3): [...]. Koldo Zuazo

Ebazpena, nazioarteko erakundeko **arautegiaren** VII. kapituluan oinarritzea proposatzen zuen Londresek. Berria - Mundua

Arautegiaren arabera, neurketa bat bukatu aurretik bertan behera geratu bada, jokatu ez diren minutuak derrigor jokatu behar dira. Berria - Kirola

-Neure baitan irudikatzen dut -esan zuen, zio garbi-garbirik gabeko bizitasun halako batez- gizona bere ikerketa-gelan, hiri bateko dorre nagusian, esaterako, telefonoz, telegrafoz, fonografoz horniturik, irratitelefonogailuz, zinematografoz, linterna magikoz, hiztegiz, ordutegiz, **arautegiz**, albistariz... Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Konstituzionalistek **arautegi** parlamentarioa "urratzea" leporatu diote, ohiko garaitik kanpoko egun batean bilkura deitzeagatik. Berria - Euskal Herria

Lanaldiari buruzko **arautegi** berria aurkeztean, Batzordeak proposatu zuen zaintzan baina "jarduerarik gabe" egindako orduak lan ordutzat ez hartzea. Berria - Ekonomia

Herri-nortasunaren bigarren zutabeari dagokionez -estatus politikoaz, alegia-, badu Azpilek legedi edo **arautegi** propio bat, Erdi Arotik-edo datorrena. Joan Mari Irigoien

Orobat ziren oztopo hiri bakoitza gobernatzen zuen **arautegi** berezia. Koro Navarro

Entzun dut kontzertu alternatiboetan arrakastarik itzelena lortu duen rockeroa globalizazioaren aurkako ideiak botatzen, eta mugarik gabeko globoak bezala haren **arautegi** progrea musika gehigarri eta albistegi hondar guztietara zabaldu da. Pako Aristi

Atzo, berriro ere, Nafarroako antzerki talde eta enpresentzat berezko **arautegia** eskatu zuen. Berria - Kultura

Betiko **arautegia** izanen da: meza, biltzar nagusia herriko etxean, pilota partida gazte batzuekin eta bazkaria Agerrian, bazkaria urrentzean eskainiko baitira, ohi den bezala, Pilotarien Biltzarraren ohorezko medailak. Herria

1439. urtean moja eskaleen etxe bat sortu zen Durangon (Santiagorena edo San Antoniorena, ez dago oso garbi), frantziskotarren hirugarren ordenaren babesean eta haien nolabaiteko **arautegia** oinarri hartuta. J.M. Olaizola "Txiliku"

Euskalkiak erabiltzeko oinarrizko **arautegia** . Koldo Zuazo

Unibertsitateen gaurko **arautegia** ez da egokiena, gehiegizko zurruntasuna ezartzeaz gain, euskaraz irakasteak dakartzan beharrak kontuan hartzen ez dituelako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nehongo **arautegian** idatzia ez zen jokamolde araudi bat hautsi zuen: harreman sexualak ukan zituen,ezkondu gabe, eta bekatuaren froga sabelean zeraman. Elena Touyarou

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

1980ko hamarraldiaren erdian, enpresa multinazionalen filialen desjabetzeak zerora jaitsiak ziren berriro, eta erruz ugaltzen hasi ziren zerga-salbuespen erabatekoaz eta gizarte- **arautegi** murrizgarririk batere gabe nazioarteko zuzeneko inbertsioei sarbidea ematen zieten eremu frankoak. Koro Navarro

Lantaldeak onartuko du bere barne- **arautegia** .Berak jokabide **arautegi** bat ezagutzen zuen, zazpigarren artikuluan dioena (agian) gisa honetako egoeretan emakumearentzat komenigarria dela, edozein gauzatan jarduten egonik ere, aurreko gizon gazteari laguntzea Nire alderdiak ez dauka argudiorik Gobernu Zentralari eskatzeko utz diezaietela presoei kartzela **arautegiaren** barnean bizitza normala egiten. Berria - Harian

Gauazko karrikazaleek bazuten beren ohore **arautegia** eta ez zuten ahorik irekitzen. Elena Touyarou

Hainbatek, euskarak estatus normalizatua izan dezan, ezinbestekotzat jotzen dute euskaraz arituko litzatekeen unibertsitate elebakar bat, baina espresuki baztertuta dago ideia hori oraingo lege **arautegian** , EHUri dagokionez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hainbat konturi dagokionez, mugatua da beharrezkoak liratekeen aldaketak egiteko aukera, Espainiako eta Frantziako Estatuek ezarritako lege **arautegiek** erabat baldintzatzen baitute Euskal Herriko unibertsitateen egitura eta jarduera. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lujanbiok epaile bati keinu itsusi bat egin zion, diziplinako kirol **arautegiaren** 24. artikuluaren lehen puntuan azaltzen den araua urratuz. Berria - Kirola

4 ***barne arautegi***

Lantaldeak onartuko du bere **barne-arautegia** . Berria - Harian

5 ***zirkulazio arautegi*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Espainiako **Zirkulazio Arautegiak** behartzen duenez, argiak eta bestelako gailuak ere badauzka, eta, hortaz, kamioiaren erabilera obra-eremura bakarrik mugatuta dago. ETC-entziklopedia

Jainkoaren manamenduek ez dute deus ikustekorik **zirkulazio-arautegiarekin** . ETC-literatura, saiakera

Galdetu, bestela, egutegitik desagertu diren lasterketei, ekonomikoki bideragarri izateari utzi diotelako, edo **zirkulazio arautegia** izugarri zorroztu dutelako ezinean dabiltzan antolatzaileei. ETC-prentsa

3.500 eta 7.500 kilo arteko pisua dutenean, berriz, ibilgailu astuna dela dio **zirkulazio arautegiak** . ETC-prentsa

Udaltzaingoak ohartarazi zigun **zirkulazio arautegian** ez dagoela horrelako terminorik, ezin dela gaua ematea galarazi, eta kezka azaldu genien, baina baldintzari eutsi zioten, eta hitzarmena bere horretan onartu genuen". ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arautegi berria (11); **arautegi berriak** (5); **arautegi berriarekin** (3); **arautegi berrira** (3); **arautegi horrek** (3)
arautegia ez (3)
arautegiak ez (5)
arautegiaren arabera (4); **atzerritarren legea arautegiaren** (4)

---

arautu, arau(tu), arautzen **1** du *ad* arau jakinen pean ezarri.

Gutxi erabili zen jurisprudentzia zahar hori; enperadoreek geroago sartu zutena erabili zen, bilduma hartan bete-betean, jurisprudentzia frantsesa **arautu** , mugatu, zuzendu eta hedatzeko. Iñaki Iñurrieta

Lege zibilek euren agintea tartekatu behar dute senar-emazteen artean, gurasoen eta seme-alaben artean; familiaren gobernua **arautu** behar dute. Andres Urrutia

Zesarrek, germaniarrekin gerran ari zelarik, germaniarren ohiturak deskribatu zituen; eta ohitura horien gainean **arautu** zituen bere ekimen batzuk. Iñaki Iñurrieta

Zesarrek, germaniarrekin gerran ari zelarik, germaniarren ohiturak deskribatu zituen; eta ohitura horien gainean **arautu** zituen bere ekimen batzuk. Iñaki Iñurrieta

Kasu honetan kanbioak **arautu** behar zuen Frantzian diruaren eta paperaren arteko proportzioa. Iñaki Iñurrieta

Funtsean, eta xehetasunak gorabehera, denok geunden konforme eutanasia **arautu** beharraz. Jon Alonso

Hirietan, nazioarteko merkatariek ezin zuten xehekako salerosketan parte hartu, salerosketa mota hori oso zorrotz **arautua** baitzegoen, ekoizleen interesen alde. Koro Navarro

Moises ez da hartan sartuko, baina bururatua du bere eginbidea: herria antolatua du, legeak ezarriak, kultua **arautua** . Jose Antonio Mujika

Hamalau urtetan ere **arautu** izan da indiarren ezkontza-adina, gizonezkoei dagokienez, eta hamahirutan emakumeei dagokienez. Iñaki Iñurrieta

Jainkozko legeen bidez ez da **arautu** behar giza legeen bidez **arautu** behar dena, ez eta giza legeen bidez ere jainkozko legeen bidez **arautu** behar dena. Iñaki Iñurrieta

Bigarren hegaztia erre-opari gisa eskainiko du, **arautua** dagoen eran. Elizen arteko biblia

Gure atzean auto bat sumatu zuen, **arauturik** zegoena baino lasterrago zetorrena. Xabier Olarra

XX. mendetik aurrera gora egin du euskaraz ikasitakoen kopuruak, eta euskara batua eta ondo **arautua** eskatu ohi du horrelako jendeak. Koldo Zuazo

1979an **arautu** zen deklinabidea (in Euskera 24-2 (1979): 633-657). Koldo Zuazo

Ezarian-ezarian, haren bizitza **arautu** zen erloju baten irudira: bere gelan lan egiten zuen; Muche txikiari eskolak ematen zizkion astean bitan, zortzietatik bederatzietara; gaualdi bat Lisa ederrari eskaintzen zion, muturtu ez zedin; eta gainontzeko denbora gela beiradunean ematen zuen, Gavardekin eta besteekin lagunartean. Karlos Zabala

Hizkuntza, kode batek **arautua** agertzen da; baina kode hori bera, bere aldetik, arau idatzi bat da, erabilera zorrotz bati -ortografiari- lotua dagoena; horra zerk ematen dion idazkerari garrantzi nagusia. Isabel Arrigain

Bistan da, horrenbestez, azkenean araudiak egingo direla hemen ere, batzuetan nazioartekoak, beste zenbaitetan nazio barnekoak, Interneten egin daitekeena eta ezin egin dena **arautuz** . Pello Salaburu

Eredu horren helburua zera zen: bakterioen baitan geneen adierazpena nola **arauturik** dagoen azaltzea. Juan Garzia

Maiorrari ez zitzaion inoiz bururatu piraten bizimodua hain **arauturik** zegokeenik. Juan Garzia

Kulturgintza onena ez da eginda dagoenaren -ikurraren- erakusleihoa, edo **araututakoaren** -akademikotasunaren- barrutia, eragile kulturalek gaur eta hemen arriskuz eta nekez egiten duten lan ia anonimoak bideratzen duena baino. Anjel Lertxundi

Badira animalia guztiengan, eta baita gizakiarengan ere, erritmo natural nagusiak, erritmo zirkadianoa (circa diem latinezko esapidetik: 'egun batean') **arautzen** dituzten "erloju biologikoak". Josu Zabaleta

Lege zibilek **arautzen** dituzte harreman naturalak eta konbentzionalak, aginduzkoak nahiz borondatezkoak, nahitaezkoak zein komenientziazkoak, norbanako guztiak beste norbanako batekin edo batzuekin lotzen dituztenak. Oskar Arana

Ezkontza lege politiko batzuek **arautzen** dute, ez lege zibil eta naturalek. Andres Urrutia

Erroman, oinordekotza oinordekoak egin beharreko zenbait sakrifiziori lotuta zihoan, eta pontifizeen zuzenbideak **arautzen** zituen sakrifizioak. Iñaki Iñurrieta

Bisigodoen mendekoan, Teodosiar kodearen bilduma batek .89, Alarikoren aginduz eginak, **arautzen** zituen erromatarren arazoak. Iñaki Iñurrieta

Lehen erromatarrek ez zuten legerik interes-tasa **arautzeko**. Iñaki Iñurrieta

2 (era burutua izenondo gisa)

Dariok agindutako Indotiko nabigazioa bere indarra erakutsi nahi duen printze baten fantasia izan zen, zerbaitetarako baliatu nahi duen errege baten egitasmo **arautua** baino. Iñaki Iñurrieta

Globalizazioa kapitalismoaren zabalkunde espazialaren adierazpen da, globoko muga guztiak gainditurik; baina, aldi berean, eta ororen gainetik, muga fisikoak eta **arautuak** saihesten, apurtzen, eta, azkenik, ezabatzen ditu, muga horiek kapitala mundu osoan metatzea eragozten baitute. Koro Navarro

Hizkuntza bizia izandako hizkuntza baten eskeleto hiper-**arautuan** idazten dut. Iñaki Segurola

Unibertsitateak hasi dira antolatzen zenbait ekimen gizarteari begiratzen diotenak sigi-sagarik gabe, eta ez bakarrik zeharka gizarte horren seme-alabak direnen prestakuntza **arautuarekin** lotzen direnak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eskola **arautuaz** kanpoko bertso-eskolen koordinazioak ahalegin berezia eskatzen du, izan ere, euskal herrietan zehar hedaturik dauden bertso-eskola hauek baitira gaurko eta biharko bertsolaritza mugimenduaren gune eta hazitoki. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabera arautu (4); **arautu beharko litzateke** (3); **arautu beharra** (3); **arautu beharreko** (3); **arautu ditu** (7); **arautu dituzte** (3); **arautu egin** (6); **arautu egingo** (4); **arautu egiten** (3); **arautu ez** (3); **arautu gabe duten** (3); **arautu gabeko** (7); **arautu nahi du** (3); **arautu zen** (7); **arautu zituen** (3); **arautu zituzten** (4); **arautu zuen** (6); **beren egoera arautu** (3); **bezala arautu** (3); **direla arautu** (3); **edo arautu** (3); **egoera arautu gabe** (10); **egoera arautu nahi** (3); **ere arautu** (6); **euren egoera arautu** (4); **lan baldintzak arautu** (5); **salerosketa arautu** (3); **zehaztu eta arautu** (4)

arautua dago (4); **dago arautua** (3); **ofizial hiper arautua** (4)

hezkuntza arautuan (7); **modu arautuan** (3)

arautuko ditu (7); **arautuko dituen dekretua** (3); **arautuko du** (7); **arautuko duen legea** (5); **arautuko dute** (4); **bildu eta arautuko** (3); **harremanak arautuko** (3)

arautze prozesua (3); **ezohiko arautze** (3)

arautzea enpresaburuen (3); **arautzea ez da** (3); **arautzea nahi** (3); **egoera arautzea** (6); **legez arautzea** (4); **sezesiorako aukera arautzea** (3)

arautzeko asmoz (4); **arautzeko dekretua** (7); **arautzeko dekretuaren** (3); **arautzeko egin** (5); **arautzeko eskumena** (3); **arautzeko lege** (3); **arautzeko legea** (4); **arautzeko onartutako** (3); **arteko harremanak arautzeko** (4); **baldintzak arautzeko** (3); **bere egoera arautzeko** (4); **egoera arautzeko eskatu** (3); **erabilpena arautzeko** (3); **erretzea arautzeko** (3); **etorkinen egoera arautzeko** (3); **euren egoera arautzeko** (5); **euskararen erabilera arautzeko** (8); **hori arautzeko** (5); **ikasketak arautzeko** (3); **immigrazioa arautzeko** (3); **legez arautzeko** (3)

arabera arautzen (3); **arautzen da** (4); **arautzen denean** (3); **arautzen dira** (4); **arautzen ditu** (16); **arautzen dituen dekretua** (3); **arautzen dituzte** (6); **arautzen dituzten** (15); **arautzen du** (25); **arautzen duelako** (3); **arautzen duen dekretua** (3); **arautzen duen legea** (8); **arautzen duena** (7); **arautzen dute** (10); **arautzen duten lege** (3); **arautzen duten legeak** (4); **arautzen zituen** (3); **arautzen zuen** (5); **baldintzak arautzen dituen** (5); **batek arautzen** (3); **bizitza arautzen** (3); **ere arautzen** (4); **eskubidea arautzen** (3); **harremanak arautzen** (3); **kanbioa arautzen** (3); **kontsumoa arautzen** (3); **legeak arautzen** (4); **sistema arautzen duen** (3)

---

arautzaile *izond/iz* arautzen duena.

Kontu ikuskari objektibo eta independenteak (Andersen erraldoi erraustua kasu), zenbait erakunde **arautzaile** eta baita, nola ez, zenbait mezulari ere (hainbat finantza analista eta kazetari tarteko). Iñaki Heras

Idiazabalgo Batzorde **Arautzaileak** garbi dauzka gazta egiteko bete behar diren oinarriak, eta gogor ari da lanean, artzain gaztaren bermea desagertu ez dadin. Berria - Ekonomia

Kontseilu **arautzaile** bat eratzea eta ingurumena errespetatuz ahalik eta kalitaterik handieneko elikagaiak lortzea ditu helburu. Berria - Ekonomia

Emakumeon eskubideak bermatzeko eremu **arautzaile** asko Autonomia Erkidegoen eskuduntzetatik kanpo daude, hala nola lan arloa, gizarte segurantza, arlo penala eta arlo zibileko eremu anitz. Berria - Euskal Herria

Irizpide orokorren buruzagi den errepublikaren espiritu **arautzaileak**, gauzak aztertu ondoren, gehiengoaren onerako diren ekintza nagusi eta inportanteenak laburtu eta sailkatu egiten ditu. Juan Martin Elexpuru

Ordenak inoiz ez baitira izango eraikuntza mental arbitrarioa, Naturaren beraren funtzionatzeko eretatik sortutako zerbait baizik, ondoren bakarrik abstraitzen den zerbait, eta neurri-sistema **arautzailearen** mailara igotzen dena, "harri bihurtu" ondoren. Santiago Iruretagoiena

Latino Amerikako finantza-ahultasun iraunkorrak, Afrikako doikuntza-politiken porrotak eta Ekialdeko Europa merkatu-ekonomiara igarotzeko zailtasunak, berriztatu egin zuten Bretton Woodseko sistematik heredaturiko erakundeen (NDF eta Munduko Bankua) eginkizun **arautzaileari** eta nazioarteko diru-sistemaren etorkizunari buruzko hausnarketa. Koro Navarro

Antzinako sistema **arautzaile** itxiarekin haserre zeudela ikusten zen. Santiago Iruretagoiena

Horien erregelak ez daude idatzita (gehienetan), jokamolde sozial **arautzaile** inplizitu batean oinarritzen dira. Askoren artean

Bada banakuntza bat batetik emozioaren ikuspegi "neutroen", emozioa ekimenaren **arautzaile** hartzen dutenen, eta bestetik emozioa subjektuaren emaitzen beheraldiekin batera gertatu ohi den disfuntzioaren erakusgarri bezala hartzen duten ikuspegi negatiboagoen artean. Josu Zabaleta

Diskurtso teorikoaren eta antzinako arkitekturaren aztarna arkeologikoen ebidentzia multiforme eta guztiz ez-**arautzailearen** arteko txokeak sortzen zuen txundidura eta harridura. Santiago Iruretagoiena

EB mailan **arautzaile** bat jartzeko proposamena mahai gainean dago, baina, atzo, oro har, estatu gehienek "hoztasunez" hartu zuten. Berria - Gaiak

Bada banakuntza bat batetik emozioaren ikuspegi "neutroen", emozioa ekimenaren **arautzaile** hartzen dutenen, eta bestetik emozioa subjektuaren emaitzen beheraldiekin batera gertatu ohi den disfuntzioaren erakusgarri bezala hartzen duten ikuspegi negatiboagoen artean. Josu Zabaleta

Neurri **arautzaileduna**, zerbitzu sare publiko integralekoa eta politika fiskal justuan oinarritutako finantzaketa publikoduna. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arautzaile bat (3)

---

arautze *iz* arau jakinen pean ezartzea.

Arautze horrek zer dakarren ikusten duzunean, baina, ikuspegia aldatzen zaizu. Berria - Euskal Herria

Gaur egun esaten ari direnez, urdailekoa omen du mila modutara eta mila lekutan agertzen zaion gaixotasun-Proteo hori, urdaila omen da-eta gorputzaren galdara eta **arautzaile** nagusia. Josu Zabaleta

Ildo beretik, garai keynestarretik heredatutako egiturazko zurruntasunei egotzi zitzaizkien europar ekonomiek krisia gainditzeko eta langabezia murrizteko zituzten eragozpen bereziak: lan-merkatuaren **arautze** zurrunegia, finantza-merkatu itxiak, prezioen kontrola, ekonomian sektore publikoak nagusitasuna izatea. Koro Navarro

LABeko Txomin Lorcaren ustea da lege proiektuak "lurzoruaren **arautze** publikoaren aldeko apustua" egin duela, baina muzin egin diola "lursailen kudeaketa publikoa egiteari". Berria - Euskal Herria

Komikoak bezain negargarriak dira kaltearen eta ordainezko sufrimenduaren **arautze** zehatzak (hik niri behi bi ebatsi, nik hiri belarri bat ebaki...). Markos Zapiain

Miren Azkarate Kultura sailburuak bilera ostean adierazi zuenez, legearekin "sektorearen **arautze** zehatzagoa" lortu nahi du Jaurlaritzak. Berria - Kultura

Errealitatean -sarri baino sarriago kontrakoa esaten den arren-, **arautzea** edo erregulazioa da nagusi merkatuetan, eta prezioak ez dira teoria aipatu horren arabera ezartzen. Iñaki Heras

Arautze Batzordeak aurten urte hobea izatea espero du Errioxako ardoentzat, 2003ko uzta ona izan baita. Berria - Ekonomia

Arabako Txakolina jatorri izeneko **Arautze** Kontseiluak aho batez hautatu du lehendakari Luis Mariano Alaba. Berria - Ekonomia

Eragin iraunkor hori, historiak eta kulturak eratzen dituzten loturen sendotasunetik ez ezik, estatuen antolaketa- eta **arautze**-ahalmenetik ere badator. Koro Navarro

Merkatuak, hobeto funtzionatzeko, estatuaren **arautze** maila jakin bat behar du; hori da nik ikasi dudan ikasgaia. Iñaki Heras

Francisco Jordan de Urries Espainiako Gobernuak Gipuzkoan duen ordezkariak **arautze** prozesuak dakarren onura azpimarratu du. Berria - Harian

Enpresa horientzako jokabide kodea edo jarraibide sozialak jarri dira, bai orokorrak -enpresa horien irabaziak bertako komunitatean atzera berriz inbertitzeko beharra, ingurugiroari babesa, transferentzia teknologikoa edota transferentzia prezioen **arautze** kontuan izan dituztenak, besteak beste- eta bai, bereziki, lan egoerari buruzkoak. Iñaki Heras

Globalizazioaren aurkako mugimenduaren helburu bakarra ez-**arautze** globala geldotzea delako. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arautze prozesua (3); **ezohiko arautze** (3)

---

arauz[1] *adlag* noski, jakina. ik **araiz**[1].

Arauz, Burke jaunak ez zuen hartzen aldiko gonbidatu bat baino, inoiz ez pertsona bera. Juan Garzia

-Badakizu **arauz** ez dela gauza ederra; arinki kontsideratzen duzun bakartasuna bekatu da, Jainkoak gizona eta emaztea sortu baitzituen elkarrekin bizitzeko. Itxaro Borda

Ez zen, **arauz**, hainbat hobea herrian gelditzen zirenen zortea! Mendi muinoetan errauts gaizto batek jotzen zituen, alabaina, gure ameztoiak, gaztaindegiak ala mahastiak, eta ibar-zelaietan hesten ziren ilagindegiak, oihalgindegiak eta larru-apaindegiak. Piarres Xarriton

---

arauz[2] *postpos* ahala. ik **arau**[2].

Alabaina, poltsikoak hustarazi zizkidaten komisaldegian sartu bezalaxe, erlojuarekin, betaurreko apurtuekin eta gerrikoarekin batean: etsipena eta itxaropena ezagututa, amorrazioak -gero eta amorrazio handiagoak, denbora iragan **arauz** - elikatu zituen nire itxialdiaren azken orduak. Aingeru Epaltza

---

arauz[3] *postpos* ezkero, heinean.

Gizon haizen **arauz**, emadak kopa. Juan Garzia

---

arauzale *izond* arauen zalea dena.

Bertsolaria ez da berez oso **arauzalea**. Andoni Egaña

---

arauzaletasun *iz* arauzale denaren nolakotasuna.

Komentuan barkatzen ikasi zuen, eta aitari zion herra **arauzaletasunak** aspaldian ordezkatua zuen. Elena Touyarou

---

arauzko **1** *izlag* arauarekin bat datorrena.

Ezkonduko zaituztet, **arauzko** moduan ezkontzera etorri diren guztiak ezkondu ditudan bezala. Koldo Biguri

Arauzko ezkontza baten seme-alabei legezko deritze, batuketa legezko eta baliozko baten fruituak baitira. Joan Mari Irigoien

Neureganatuak ditut belarren bertuteak, **arauzko** astrologia, matematikak eta zuzenbide kanonikoa. Juan Garzia

Zure aitak ez du ulertzen nola zure adineko mutil bat oraindik ere lotara daitekeen, neska bat bezala, pelutxe batekin, pelutxea **arauzko** baloia bada ere. Joan Mari Irigoien

Dibertigarri zitzaidan nolako destaina harro-nabarmenez janzten zuen azterketetan, **arauzko** alkandora faxistaren ordez, kokospeko beltz xelebre bat, arra bat zabal, zeina mugimendu zakar bakoitzean jakaren ertzetatik irteten baitzitzaion. Juan Garzia

Tenientea desenkusatu egin zen: nik **arauzko** onespen orokorra eman arte, jakina, ezin zidan gauza handirik esan. Juan Garzia

Albertok, berriz, zulo biribil bat zuen xafla zati bat ekarri zuen: **arauzko** kalibre doi hartara errenditu behar genituen zilindroak, harritxo eta, beraz, ogi bihurtzeko. Juan Garzia

-Horra hor zentzuzko zentzuaren aurkako eta **arauzko** arauen aurkako salbuespena, osaba! Joan Mari Irigoien

2 (izenondo gisa)

Kontsumo-joeren eta arau teknikoen berdintzeari, gainera, kapitalen mugimenduari ezarritako eragozpen fisikoen eta **arauzkoen** ezabatze lasterra erantsi behar zaio. Koro Navarro

Aukera biren artean bat hautatu behar izatera, lehentasuna, hedatuen zegoenari gabe, **arauzkoena** zenari emango ziola aldarrikatu zuen Zabalak. Koldo Zuazo

"Arauzkoa" izatea, baina, ez da nahitaez "jatorra" eta "zuzena" izatearen berdina, eta horixe da adibide bi horietan ikusten duguna: **arauzkoak** ez diren *roto* eta *quepo* dira jatorrak eta zuzenak, eta **arauzkoak** diren *rompido* eta *cabo*, aldiz, berriak eta okerrak. Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arauzko denbora agortu (3); **arauzko denbora agortuta** (3); **arauzko denbora amaituta** (3); **arauzko ezkontza** (4); **arauzko proposamena aurkeztu** (4); **da arauzko** (3); **ez arauzko proposamena** (8)

---

arauzkotasun *iz* arauzkoa denaren nolakotasuna.

"Arauzkotasuna" aipatzen zuen, beraz, Zabalak, eta jakin dezagun zer esan nahi duen horrek. Koldo Zuazo

Periodikoki basamortuak hiriari armaz erasotzen dio, menperatu eta Estatu berri bat sortu; eta, **arauzkotasun** berdinarekin, nomada kaletartu burgestuaren ahulketak eta endekapenak jarraitzen du. Joxe Azurmendi

Doktoreengan (gorets bedi haien oroitzapena!) aurkitzen duzunean halako zeruan badela hau eta beste batean hori, ez duzu ulertu behar zeruan zerua ez bezalako beste gorputz batzuk direnik, baina halako eta holako gauzak sortarazten dituzten ahalmenak eta horiek **arauzkotasuna** atxikitzen dutenak honelako edo halako zerutik etorriak direla. Xabier Kintana

---

arauzkotu, arauzko(tu), arauzkotzen du *ad* arauzko bihurtu.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) administrazioa euskalduntzeko bidea 1982.an hasi zen, Euskararen Erabilpena **Arauzkotzeko** Oinarrizko Legea onartu zenean. Berria - Harian

---

arawak *(corpusean ez dago; ETCn **97** agerraldi) izond/iz* Hego Amerikako herri amerindiar batzuen izen generikoa.

Gero **arawak** izenekoak zeuden. ETC-literatura, saiakera

Jamaica Kristobal Kolonek aurkituriko uhartearen **arawak** izenaren (Xaymaca) ingeles deformazio bat da, eta "Kincaid", ingeles mintzairako munduan oso zabaldua dagoen deitura bat, jatorriz eskoziarra. ETC-literatura, saiakera

Antilla Handietako **arawak** jendea -hasieran tainoak- baketsu, otzan eta are izuti nahiz koldar gisa deskribatu zuen. ETC-literatura, saiakera

Europarren historiak dio Kolonek lehendabizi ikusi zituen taino edo **arawak** indigenak baketsuak zirela, eta bazela karibe deitu zioten beste herri anker bat. ETC-prentsa

Herri horren historia, gorabeherak, esklabotzaren bideak, **arawak** eta kallipona nazioen historia eta europarren sarraskiak, interesgarria da oso ibilbidea... baina diglosia hemen ere nagusi: badaude esaldi batzuk garifuneraz, baina testuak eta azalpenak ingelesez baino ez. ETC-prentsa

Brasilgo zazpi herri indigena jarri dituzu harremanetan, modu baketsuan, Amazoniako oihanean; baita **arawak** izenekoak ere, galdutzat emanda zeuzkatenak. ETC-prentsa

Arawak taldekoa da beren hizkuntza eta sarritan indios campa deitu dituzte Perun bezala munduan. ETC-prentsa

300. urte inguruan populatu zuten **arawak**-ek, Guadalupeko gainerako irlak bezalaxe. ETC-prentsa

Arawakak saiatuko dira, baina ezin ezer egin zaldi gainean eta mosketoiekin datozkien armatuen kontra. ETC-prentsa

Guyanetatik etorritako **Arawak** tribua K. a. 100 urtetik XV. menderaino Birjina uharteetan bizi ziren, karibeek uhartedia okupatu zuten arte. ETC-entziklopedia

Arawak eta karibe indigenen eta ihes egindako esklabo beltzen nahasketatik sortu zen taldea Antilla Txikietako Saint Vincent uhartean. ETC-entziklopedia

Guadalupeko lehen biztanleak **arawak** amerindiarrak izan ziren, arrantzaz eta nekazaritzaz bizi zen herri baketsua, K.a. 330. urtean. ETC-entziklopedia

---

arazeria *iz* arta, ardura.

Atsegin nuen emakumearen jardun gozoa, hitz xumeez osatua, **arazeriarik** gabe aratz zeriona. Anjel Lertxundi

---

arazketa 1 *iz* araztea, aratz bihurtzea.

Metalen **arazketak**. Xabier Aranburu

Zientzia zehatzekin bat egiteko bere ahalegina, bere behaketa-metodoen gero eta zorrotzagoak egitea, bere baitan dauden irudien edo mamuen kanporatze geldoa eta zaila, bere arrazoitze-sistemaren **arazketa**. Xabier Arregi

2 ***uraren arazketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **34** agerraldi)*

Ur naturala edateko ur prozesu bihurtzeari edateko **uraren arazketa** deritzo. Uraren jatorriaren arabera, arazketa prozesu ezberdinak erabiltzen dira. ETC-entziklopedia

Gizakiak, **uraren arazketa** izeneko tratamendu baten bitartez, garbitu eta edan dezake, edateko ura lortuz. ETC-entziklopedia

Uraren arazketak ere kezkatzen ditu ekologistak; izan ere, haien arabera, oraindik ere hainbat herri eta eskualdetan ez dituzte ur zikinak arazten. ETC-prentsa

Zabalaingo bizilagunek atzo egunkariari azaldu ziotenez, "euriak gogor ari duen heinean botatzen ditu hondarrak **uraren arazketa** egin gabe, eta, berriz, filtrazioak amaitzen dira euririk ez dagoela". ETC-prentsa

Egun, baina, hobetzen jarraitzea oso zaila da; maila batera heldu gara, non **uraren arazketa** sistemak ez diren eraginkorrak. ETC-prentsa

Naturarekiko harreman estua dute ekoizpen arlo guztietan (elikadura, eraikuntzamaterialak, energia-baliabideak, **uraren arazketa**, etab.). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arazki *adlag* garbiki.

Angelitos negrosen doinua **arazki** zabaltzen zen. Bernardo Atxaga

---

arazle 1 *izond* eragilea.

Ez daukagu zertan jardun borondate txarraren kausa **arazlearen** bila. Imanol Unzurrunzaga

Jainkoa ez da bakarrik gauzen existentziaren kausa **arazlea**, baina bai haien esentziarena ere. Piarres Xarriton

Borondate txarraren kausa **arazlea** ez dezala inork ere bila; kausa hori ez baita **arazlea**, murrizlea baizik (*efficiens*/ *deficiens*), gogo txarra, berez, ez delako eragile, geldiarazle baizik (*effectio / defectio*). Imanol Unzurrunzaga

2 ***aditz arazle*** *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Eta data, mugagabearen deklinabidea eta erabilera, eta **aditz arazleak** klasikoak dira etsamina horretan. ETC-prentsa

Adibide gisa, egin arazi aditzaren antzeko **aditz arazleen** kasua aztertu dugu, baina fenomenoa beste eremu gramatikal askotan ikus daiteke, bakoitzean bere ñabardura eta berezitasunekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi nominalizazio ere aurkitu ditzakegu aditz jakin batzuk uztarturik (**aditz arazleak** bereziki: kausa/ondorio zein ondorio/kausa erlazioa adieraziz). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arazo 1 *iz* zerbaitek eskatzen duen ardura; zerbaitek ematen duen nekea, eragiten duen kezka.

Baina etxera hurbiltzenago eta geldiago abiada, zeren egia filosofikoak baino askotxoz ere zailagoa zen **arazo** bat baitzerabilen gogoan; eta **arazo** hori era honetara formulatzen zen doktore gajoarentzat: Josu Zabaleta

Krisi pertsonal horren **arazoa**, ordea, idazlearen alderdi unibertsalak sortzen eta mamitzen zuen: bere filosofiak. Jenaro Garate

Jean-Baptistek maitale asko izan zuen eta, beti zirrara berrien bila, gazte-gaztetatik poliziarekin **arazo** ugari ekarri zioten harreman homosexualak ere ez gutxi. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Arazoak eta **arazoen** sustatzaileak berdintsuak direlakotz eta, funtsean, helburu bera bilatzen dutelakotz: betiko finkatzea mende luzeetako ukazioa, eskubideen ukazioa. Filipe Bidart

Hara nola konpondu zuen arkitektoak **arazoa**, askoz geroago jakin zenez: marmolezko blokeetan ildoak egin, eta burdinazko ziriak sartu zituen ildootan, porlanez disimulatuak. Irene Aldasoro

Zein da **arazoa**? Xabier Paya

Honorék esan zidan sabelean **arazoak** izaten dituztela beti emakumeek. Joxan Elosegi

Ohean geratzen naiz, neuri galdezka, hi zertan habil, ez lo ez esna, baina jaiki eta eguna abiatzen denean ez da beste **arazorik** egoten eta dena ondo ateratzen da. Pako Aristi

Hori euren arteko **arazoa** da, Arruti eta Izpizuaren artekoa. Hasier Etxeberria

Amaituko dira, hartara, adulterazioaren inguruko **arazoak**. Iban Zaldua

Baina elkarrekin haserretu eta konforme ez geunden **arazoak** izan genituen behin; areago, harrezkero ia ez genion elkarri hitzik ere esaten. Josu Zabaleta

-Ez zaitez joan olibondoetara, Pedro, harrapatzen bazaituzte **arazoak** izango dituzu! Jon Maia

-Ezer ez barruan, hortik datoz **arazoak**. Joxean Sagaztizabal

Arazoa da ez dakidala zein gai jorratu nire nobelan. Eskarne Mujika

Deskuiduan **arazoren** bat badu, ekarri nigana berehala. Juan Kruz Igerabide

Ondorengo prentsaurrean futbolari gazte txar bat atera zela esateko ez zegoela **arazorik**, berak argi ikusten zuela bazegoela taldea aurrera ateratzeko kalitatea, eta

konpromisoa. Jon Alonso

-Ez nekien ba **arazoak** genituenik... Lander Garro

-Lehenengoarekin ez dago **arazorik**, etxean baita, azken batean: Caltech-en, Kaliforniako Institutu Teknologikoan. Fernando Morillo

Ezkerrak nagusi eta eskuinak laguntzaile behar dutenetan sortzen zaizkit **arazoak**, eskuina baldartu egiten baitzait eta kontrakarrean segitzen baitio ezkerrari. Anjel Lertxundi

Badakizue, zuzeneko saioen **arazoak** dira horiek. Jon Arretxe

Garbi zitzaion halaber, amak ez zuela **arazoaren** nondik norakoen azaltzeko gutiziarik. Itxaro Borda

Hasieran nik ere **arazoa** hori zela uste banuen ere. Arantxa Iturbe

Direlako gogojardunotan bekatuak eta beren txarkeriak barrenago ezagutzen dira, gizona barneko **arazoez** hainbeste arduratzen ez zen garaian baino; ezagutza eta dolu handiagoa lorturik orain, lehen zen baino probetxu eta merezimendu handiagoa izango da. Patxi Altuna

Telefonoz kontsulta egin nuen bere garaian horrek **arazorik** ekar ote ziezadakeen ziurtatzeko eta ezetz esan zidaten. Harkaitz Cano

Bere liburu askotan kontzientziaren **arazoa** jorratu zuen. Jose Morales

- Sexua duk **arazoa**, Martxel, sexua. Alberto Barandiaren

Buruan, **arazorik** gabe gertatzen da dena. Eskarne Mujika

Denak beren lekuetan zeuden, eserita, gertaturikoa haien **arazoa** ez balitz bezala, burukoikeria bete-betean. Karlos Linazasoro

2 (izenondoekin)

Laborategiko **arazo** handienak txiki eta arruntenak hutsal begitantzen zitzaizkidan, nire egonezinarekin alderatuta. Hasier Etxeberria

Gidatzea **arazo** larriagoa zen berarentzat. Xabier Olarra

Eta, ondoren, nire azalpen guztia irudien teoriaren **arazo** nagusiak mamitzen diren gaiei buruzko ataletan antolatu nahi izan dudalako. Josu Zabaleta

Hala ere, **arazo** pertsonalengatik, utzi egin behar izan nuen. Imanol Zurutuza

Sorginkeria-libururik ezin erabili izate hori **arazo** larria zen Harryrentzat, Hogwartseko irakasleek lan asko eman baitzioten oporretan etxean egiteko. Iñaki Mendiguren

Izan ere, Gasteizko Santiago Ospitalean azterlan sakona egin zuten 2000. urtean eta suizidiorako joerak agertutako gaixoen herenak **arazo** bipolarrak zituzten. Berria - Euskal Herria

Loditasuna, **arazo** potoloa. Berria - Euskal Herria

Baina, pertsonaien eta pasadizoen gorabeherez gain, Frantziako bigarren inperioaren gizartea zertan zen agertu zuen zehaztasunik mingarrienetaraino, eta, are gehiago, lehenengo asmoaren ertzak gainditu eta bere garaiko **arazo** nagusiei ekin zien ia bat bera ere kanpoan utzi gabe. Karlos Zabala

Beraien **arazo** sentimental likitsen zakarrontzia zela zirudion batzuetan eta zikin sentitzen zen. Itxaro Borda

Ez zuen dirurik lortu asmo hori aurrera eramateko, baina bere kontura hasi zen liburutegi eder bat osatzen, sekula baino **arazo** ekonomiko handiagoak izan arren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arazo konplexua da, nire irudiko. Xabier Mendiguren Elizegi

Errateko zuhurki, euskalduntasunarenaz aparte, gasnak biltzen zituela bere mami zuriaren leunean, hemen gaindiko **arazo** politikoak, ekonomikoak, kulturalak eta psikologikoak batera. Itxaro Borda

Baina azken orduko **arazo** premiazko bat sortu da, ustekabean, eta alde egin behar izan du. Jon Alonso

Vernek **arazo** teknikoei aurre egin eta erantzuna ematen die, garai hartako ezaguerez baliaturik. Karlos Zabala

Arazo ekonomikoengatik Tagastera itzuli behar izan zuen. Imanol Unzurrunzaga

Arazo judua ez da gertaeratxo huts bat bakarrik. Ramon Etxezarreta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Uste izaten da **arazo** uholde batek itota egoten dela menderatua, arazo horiek konpontzeko bere infanteria, artilleria, tankeak, hegazkinak erre arte gastatuz. Josu Zabaleta

Beste atera biderik ez bazen, fraileek libro uzten zutela eta jadanik eman dirua itzuliko ziotela **arazo** izpirik gabe. Xipri Arbelbide

Arrantzak honela jarraitzea ez da komeni eta ez da posible: bolanta izeneko sare pelagikoen kontua txori-kaka baino ez da **arazo**-ozeano horretan. Edorta Agirre

Garai hartan kasik kontsolamendu bakarra **arazo** mota haien erdian: ez nintzela mutiko gazte pollitetara ekarria. Piarres Aintziart

Eta Batasuneko herri guztietan diru politika uniformea ezartzea ez litzateke **arazo** iturri, baldin eta herri horiek errenta, langabezia eta inflazio berekoak balira; herrialde bakoitzaren beharrak antzekoak balira, alegia. Iñaki Heras

Etorkizunean **arazo** iturri izango dira kurduen aldarrikapenak. Berria - Harian

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amnesia **arazoak** ditu. Joseba Sarrionandia

"Eromena kimika **arazoa** duk soil-soilik", esaten zuen, "noizbait pastilen bidez konponduko duk dena". Bernardo Atxaga

Ez nizkion neure itzulpen **arazoak** aitortuko. Aingeru Epaltza

Batzuetan hainbesteraino da, ezen iruditzen baitzait osasun **arazoak** izan behar dituela. Antton Olano

Anoa-murrizketazko eta merkatu beltzezko garai hartan, ez zen han goian hornidura-**arazorik**: nola, inork ez genekien, baina denok genuen denetik. Juan Garzia

Eta denbora alferrik galdu honen guztiaren ondoren zer?, eta kontzentrazio **arazoak** omen dauzkat. Jesus Mari Mendizabal

Baina debekatua daukat aspaldion, tentsio **arazoak**. Koldo Izagirre

Lehenbizikoz irakurle, amodio **arazoez** gain, zinezko duda literarioek larrantzi ninduten. Itxaro Borda

Haren obra itzultzeko interesaturik zeuden atzerriko argitaletxeek ere atzera jo ohi zuten, lege **arazoak** etor zekizkiekeelako. Joxean Agirre

Handik gutxira, Martin delako hura Argentinara joan zen, diru **arazoak** omen zituelako. Javi Cillero

Hori nahikoa da, Gidarian dauden ordena **arazoak** nabaritzean, gure barruan ezbai sakona sortzeko. Xabier Kintana

5 ***barne arazoetako ministerio*** *(corpusean ez dago; ETCn **91** agerraldi)*

Zure auzokoa terrorista izanez gero, zorionak!, **barne arazoetako ministerioak** diru kopuru ederra agintzen zizun oporretarako. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, erdi-juduak akabatzen utziz gero, alferrik galduko zen "alemana den haien odolaren erdia", **Barne Arazoetako Ministerioko** Stuckartek Wannseeko Konferentzian esan zuen bezala. ETC-literatura, saiakera

Holdenek aspalditik ezagutzen zuen Wilde eta, **Barne Arazoetako Ministerioan** lan egiten zuenez, kartzelei buruzko sail batean, ez zuen eragozpenik izanWilde ikustera joateko. ETC-literatura, saiakera

Al Barazantxi Kirkukeko eskualdeko **Barne Arazoetako Ministerioko** zuzendaria zen. ETC-prentsa

Eusko Legebiltzarrak gidabaimena lortzeko azterketa teorikoa eta praktikoa euskaraz egin ahal izatea bermatzeko eskatu zion atzo Espainiako **Barne Arazoetako Ministerioari**. ETC-prentsa

Michelle Alliot-Marie (MAM deitua; Ipar Euskal Herriko politikagintzan eragile nabarmena) **Barne-Arazoetako Ministeriotik** Justizia Ministeriora aldatu du presidenteak. ETC-prentsa

Atxiloketa prebentiboaren kontzeptua **Barne-arazoetako ministerioa** hasi zen erabiltzen. ETC-prentsa

Nire abokatuek polizia-agiria eskatu zutenean ikusi genuen operazioa beldurra sustatu nahi zuen **Barne Arazoetako Ministerioaren** publizitate-lema zela. ETC-prentsa

Horiek funts hartuta egiten du lan SGIP Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiak, **Barne-arazoetako Ministerioaren** barruan. ETC-zientzia, zuzenbidea

2019ko urtarrilean iragarri zen Espainiako **Barne Arazoetako Ministerioa Barne Arazoetako Ministerioaren** partidu politikoen erregistroan inskripzioa burutu zuela mugimenduak. ETC-entziklopedia

6 ***barne arazoetako ministro*** *(corpusean ez dago; ETCn **60** agerraldi)*

Kabilaren zerraldoari Kinshasako Gobernuko ordezkaritza batek harrera egin zion, Gaetan Kakudji **Barne Arazoetako ministroa** buru zuelarik. ETC-prentsa

Fronte Batua izena hartu berri duen Afganistango Iparraldeko Aliantzak 11 ordezkari -horien artean bi emakume- bidaliko ditu Bonneko Konferentziarat, eta delegazioaren buru izango da Junis Kanuni **Barne arazoetako ministroa**. ETC-prentsa

Gutxi ez balitz, Espainiako Gobernua, **barne-arazoetako ministroa** eta fiskalak buru dituelarik, harrokeriaz agertzen zaigu agerkari hauen kontakizunetan. ETC-prentsa

PP alderdia eta estatuko gobernuko ministro batzuk -bereziki **barne arazoetako ministroa**- mahai gainean ipintzen ari diren gai bat da zehazki esandako ikuspegitik aztertu beharrekoa, zera, damua. ETC-prentsa

Antisemita moderno bakarra zegoen Eslovakiako gobernuan, eta hura zen Sano Mach, **Barne Arazoetako Ministroa**, Eichmannen lagun ona. ETC-literatura, saiakera

2011ko uztailaren 11n, Espainiako Barne Arazoetako Ministerioa Espainiako **Barne Arazoetako ministro** izendatu zuen José Luis Rodríguez Zapaterok, ETAren aurkako borrokan izandako "arrakasta handietan bere ekarpena" izan zuela nabarmenduta. ETC-entziklopedia

Frantziako Bigarren Inperioak porrot egin zuenean antolatu zen behin-behineko gobernuko **Barne Arazoetako ministro** izan zen. ETC-entziklopedia

7 *estatu arazo*

Estatu arazoa dago, eta herrialde batzuen nahia ez dagoenez asetuta, Estatuak konponbidea aurkitu beharko dio horri. Berria - Euskal Herria

Baina Pekinek gobernuaren erdigune izaten jarraitu zuen, eta Chung-tu-k oporretako egoitza izaten, nahiz eta hor ere batzuetan **estatu-arazoak** aztertu, zalantzarik gabe. Iñaki Mendiguren

Mediku batek, beraz, epaile batek edo **estatu-arazoetan** aditua den batek erregela patologiko, juristiko edo politiko ederrak izan ditzakete buruan, beren maisu zehatzak izatera irits daitezkeen mailan gainera. Ibon Uribarri

Izan ere, jeneral mordoa zeukan bere erabaki eta aginduen zain; garrantzi handiko eginkizunak zituen, berehala konpondu beharreko **estatu-arazoak**, ezin zuen minutu bat ere alferrik galdu, eta hortxe zeukan deabru burugogor hura alamena ematen. Jose Morales

8 *ingurumen arazo*

Bardeako tiro poligonoa, Ezkaba mendiko gotorlekua, iritsi ez diren azpiegiturak eta **ingurumen arazo** larriak. Berria - Euskal Herria

Alabaina, batzuentzat **ingurumen arazoak** -kutsaduraren arazora mugatzen ziren-, eta beste batzuentzat pobreziaren arazoa kolpe latza izan ziren ikuspegi ekonomizista horrentzat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Lehen exogenotzat hartzen zen gai andana zientziaren ikerketaren jo puntuan kokatzen da bete-betean: **ingurumen-arazoak**, zientziaren demokratizazioaren (kontrolaren) auzia, arriskuen gaineko eztabaida eta abar. Askoren artean

Bigarrenik, mugak gainditzen dituzten **ingurumen arazoen** kudeaketa (ur baliabideak, hondamendi naturalak, eta iraganetik jasotako kutsadura industrial zein militarra). Berria - Gaiak

Bestelako mehatxu ekonomiko eta sozial berriez ere mintzatzen da: pobrezia, infekziozko gaitzak tartean ihesa, **ingurumen arazoak** eta hondamendi naturalak. Berria - Mundua

9 *kanpo arazo*

Kanpo arazoetako ministro izan zen, eta Moskuko gobernadore. Karlos Zabala

Erresuma Batuko **Kanpo Arazoetako** Ministerioan. Berria - Euskal Herria

Herrien Europa federalak baizik ez ditzake konpondu Europa osoaren barne eta **kanpo arazoak**. Berria - Euskal Herria

Kanpo Arazoetarako Batzordeak eginiko txostenak. Berria - Euskal Herria

Mikel Anton Eusko Jaurlaritzako **Kanpo Arazoetarako** zuzendaria. Berria - Euskal Herria

Denbora aurrera joan ahala, aldaketa hauek barne eta **kanpo arazo** larriak eragingo dituzte Ordenan. Askoren artean

10 *kanpo arazoetako ministerio*

1936ko gerran, Companys presidentearen mezulari sekretua izan zen Erresuma Batuko **Kanpo Arazoetako Ministerioan**; Kataluniarentzat eta Euskal Herriarentzat bake berezia negoziatzen saiatu zen. Berria - Euskal Herria

11 *kanpo arazoetako ministro*

Hala jakinarazi zuen atzo Belgikako **Kanpo Arazoetako ministro** Rudy Huygelenek. Berria - Euskal Herria

Kanpo arazoetako ministro izan zen, eta Moskuko gobernadore. Karlos Zabala

12 *merkataritza-arazo*

Haren adar nagusia Erromako herritarrei jaten emateko ekartzen zen garia zen; hiri-arazoa zen, bada, **merkataritza-arazoa** baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

Munduko zarata eta **merkataritza-arazoetatik** apur bat aldendurik, bere bihotz barnean Jesu Kristo gordetzen saiatzen zen. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 20 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arazo asko** (89); **arazo asko izan** (22); **arazo bakarra** (48); **arazo barik** (29); **arazo bat** (316); **arazo bat da** (27); **arazo bat dago** (21); **arazo baten** (26); **arazo bati** (20); **arazo batzuk** (67); **arazo bera** (27); **arazo berezirik** (20); **arazo dezente** (21); **arazo edo** (22); **arazo ekonomiko** (24); **arazo ekonomikoak** (31); **arazo fisikoak** (35); **arazo gehiago** (109); **arazo gehiago izan** (38); **arazo gehien** (37); **arazo gutxiago** (23); **arazo guztiak** (52); **arazo handi** (22); **arazo handia** (42); **arazo handiak** (111); **arazo handiak izan** (26); **arazo handiena** (22); **arazo handirik** (89); **arazo handirik gabe** (27); **arazo handirik izan** (26); **arazo hau** (77); **arazo hauek** (27); **arazo honetan** (23); **arazo honi** (34); **arazo hori** (106); **arazo horiek** (77); **arazo horren** (21); **arazo horri** (42); **arazo izan** (68); **arazo larri** (47); **arazo larria** (95); **arazo larria da** (31); **arazo larriak** (175); **arazo larririk** (23); **arazo nagusia** (101); **arazo nagusiak** (38); **arazo nagusietako** (22); **arazo nagusietako bat** (21); **arazo politiko** (28); **arazo politikoa** (32); **arazo politikoak** (31); **arazo psikologikoak** (20); **arazo tekniko** (21); **arazo teknikoak** (20); **arazo txiki** (24); **arazo ugari** (60); **arazoak arazo** (50); **baina arazo** (47); **baino arazo** (58); **baino arazo gehiago** (34); **beste arazo** (105); **beste arazo bat** (44); **beste arazo batzuk** (21); **bi arazo** (30); **diru arazo** (21); **ez da arazo** (43); **ez zen arazo** (21); **hainbat arazo** (67); **hamaika arazo** (39); **hamaika arazo izan** (20); **osasun arazo** (86); **osasun arazo larriak** (29); **zenbait arazo** (39)
>
> **arazoa da** (226); **arazoa dela** (48); **arazoa ez da** (132); **arazoa ez dela** (30); **arazoa izan** (31); **arazoa konpondu** (64); **arazoa konponduko** (50); **arazoa konpontzeko** (111); **arazoa konpontzen** (38); **arazoa zen** (25); **arazoa zera** (21); **benetako arazoa** (37); **bere arazoa** (28); **etxebizitzaren arazoa** (25); **ez da arazoa** (21); **gure arazoa** (30); **nire arazoa** (33); **zuen arazoa** (34)
>
> **arazoak arazo** (50); **arazoak daude** (33); **arazoak dira** (22); **arazoak direla** (55); **arazoak direla eta** (34); **arazoak ditu** (55); **arazoak dituzte** (59); **arazoak dituztela** (24); **arazoak dituzten** (53); **arazoak egon** (27); **arazoak eragin** (29); **arazoak izan** (264); **arazoak izan zituen** (49); **arazoak izango** (70); **arazoak izaten** (52); **arazoak konpondu** (53); **arazoak konpontzeko** (118); **arazoak konpontzen** (25); **arazoak saihesteko** (20); **arazoak sor** (36); **arazoak sortu** (38); **arazoak sortzen** (78); **arazoak sortzen ditu** (26); **arazoak zirela** (34); **arazoak zituen** (24); **benetako arazoak** (23); **bere arazoak** (26); **bihotzeko arazoak** (30); **buruko osasun arazoak** (21); **dauden arazoak** (20); **dira arazoak** (26); **diren arazoak** (25); **diru arazoak** (27); **hartzeko arazoak** (21); **horrek arazoak** (29); **osasun arazoak** (154); **osasun arazoak direla** (21); **segurtasun arazoak** (24); **zirkulazio arazoak** (20)
>
> **arazoaren berri** (21)
>
> **arazoari aurre** (60); **arazoari aurre egiteko** (35); **arazoari irtenbidea** (20)
>
> **arazoei aurre** (68); **arazoei aurre egiteko** (43); **arazoei buruz** (24)
>
> **arazoen ondorioz** (30)
>
> **osasun arazoengatik** (27)
>
> **arazoetako bat** (26)
>
> **gizarte arazoetarako** (20)

---

arazoaldi *iz* arazoak dauden aldia.

Estatu unibertsalak bihotz eta buruak liluratzen ditu **arazoaldi** baten etengabeko porrotean susperraldia gorpuzten duelako. Iñaki Mendiguren

431-404an piztu zenean hasi zelarik **arazoaldi** hori. Iñaki Mendiguren

Honen azalpen bat zera izan liteke: estatu unibertsala indarberritze bat dela **arazoaldiaren** ondoren. Iñaki Mendiguren

Ikusi dugu eliza unibertsal bat **arazoaldian** sortu ohi dela zibilizazio baten kolapsoaren ostean eta ondorengo estatu unibertsalaren esparru politikoan garatzen dela. Iñaki Mendiguren

Arazoaldietan, zenbat eta atzerago geratu orduan eta bizikiago deitoratzen -eta agian historikotasun gutxiagoz idealizatzen- diren egoera zoriontsuago haietako batera itzultzeko ahalegina. Iñaki Mendiguren

arazodun *iz/izond* arazoren bat duena.

Bakardadea ez zen beti min eta bakarturiko jendeak jende ziren oraino, ez uste komunak zioen eran eriak edo **arazodunak**. Itxaro Borda

Zera erants daiteke: artistak, krisia eta arazoa zehazten ahalegintzeaz gainera, gizakiok krisidun eta **arazodun** garela oroitarazten digu. Anjel Lertxundi

---

arazotsu *izond* arazoz betea.

Edozertan arrakasta lortzeko neke handiak jasatera ohituta daudenez, bere delituen arrakasta **arazotsua** izan ohi eurentzat, eta, honengatik, hura lortzeko grina handitu egiten da. Juan Martin Elexpuru

Definizio nagusien gainbegiratu honek ongi erakusten du zergatik den horren **arazotsua** adierazgarritasunaren kontzeptua. Josu Zabaleta

Berezia dena ziurra da, nahiz eta ondorio horren erregelaren orokortasuna oraindik **arazotsua** izan. Ibon Uribarri

Oraingo lapurreta hau aurrekoa, iazko uztailekoa, baino askoz ere **arazotsuagoa** izan da. Josu Zabaleta

---

arazotu, arazo(tu), arazotzen da/du *ad* asaldatu; arduratu.

Hala gizakiaren ekintzak ere, patuaren halabeharrez **arazoturik**, asmo eragile guztiari alderatu, eta ustekabeko nora ezean suertatzen dira. Pedro Alberdi

Nagusiak bazter guztietara luzatzen zuen bere begirada zorrotza, eta, armiarma nekaezinaren antzera, batera eta bestera aritzen zen etengabe, etxaldea bere amarauna bailuen, **arazoturik** baina erne beti. Jose Morales

---

arazotxo *iz adkor* arazo txikia.

Bazegoela **arazotxo** bat: nire zutabean aipatzen nuen bezala -baina ni Duvrescuren kritikez ari nintzen-, pozoi-dosi txiki batzuek sorrarazten zioten ondoezaren eraginpean egin zuela lan senarrak nobelan. Iban Zaldua

Atzo goizean Iruñeko San Migel Klinikan egin zioten erresonantzian ezker zangoko bizepsean **arazotxo** bat baduela baieztatu zen. Berria - Kirola

-Bai, **arazotxo** bat badaukagu hor, egia esan. Joxerra Garzia

Ematen du Eunicek **arazotxoren** bat duela Stevekin. Xabier Paya

Urte osoan izan ditugu **arazotxoak** zelaiarekin, eta egunotako elurra eta izo-tza ez dira lagun onak. Berria - Kirola

Hasiera-hasieratik izan nituen arazoak, edo, hobeto esanda, **arazotxoak**. Iban Zaldua

Behin baino gehiagotan lagundu zidan **arazotxoak** konpontzen. Migel Angel Mintegi

-Oso aspergarria da, hamaika urteko neskatila baten **arazotxo** ergelak entzun behar izatea -jarraitu zuen-. Iñaki Mendiguren

Bigarren **arazotxoa** bekaren betebehar batzuk ziren. Karlos Zabala

Umeen arteko **arazotxoren** bat gertatzen bazen, bi familiaburuak etxetik irten eta, poliki-poliki, mugako hesirantz abiatzen ziren, basa-madariondoa zegoen tokira. Koldo Biguri

Oreja medikuaren erietxean bihotzeko **arazotxo** bat zaintzen ari zela, bertan harrapatu omen zuen gerrak. Inazio Mujika Iraola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arazotxo bat izan** (3); **arazotxo batzuk** (4)

---

araztaile *(corpusean ez dago; ETCn **60** agerraldi)* *izond/iz* arazten duena.

Konparatuz gero dirua zer den halakoentzat eta zer kortesanentzat, guztiz desberdina da batzuentzat eta besteentzat, baina bientzat da **araztailea**: diruak tresna bihurtzen du gizonezkoa, eta askatasun erotikoa ematen dio emakumeari, gaztetako urguiluak ukatu ziona. ETC-literatura, saiakera

Ur bedeinkatua, **araztailea**, bataio berria... eta ohean sartuko zara. ETC-literatura, saiakera

Baina ezer ez da egiantzekoagoa hurrengo gertaera baino, hau da, geroago, gizakiek, pentsatzean, eguzkia eta arazteko zeremoniak harremanetan jarri zituztela, baita horiek jatorrian soilik **araztaile** gisa pentsatu ziren lekuetan ere. ETC-literatura, saiakera

Milaka milioi adar ditu norabide guztietan hedatzen direnak, haren fruitua jaten eta gero eta bekatu gehiago egiten jarraitzen dugu haragizko ezagutzaz, eta, beraz, beti izango dugu **araztaileen** beharra, eta nik **araztailea** izan nahi badut Jesusen edo Bushen edo Schwarzeneggerren moduan, gaizkiari buruz jakiteko dagoen guzti-guztia jakin behar dut. ETC-literatura, saiakera

[...] kondoi semenduak batzuetan; zenbat eta nazkagarriago bata hainbat eta intentsuagoa bestea, gaueko zikinkerien izerditze bat, goiz-goizean korrika egitera edo mendiak igotzera joaten direnak nola, amorratuki bazter uzten saiatu banaiz ere etengabe nigana itzultzen den tradizio sitsek-jandako baten ondare, erreproduzitu dezadan, penitentzia **araztaile**. ETC-literatura, saiakera

Hirugarrenik, sua elementu zentrala bilakatzen da mobilizazioetan; baina mugimendu feministak historikoki suari emandako botere **araztailea** alde batera uzten da (akelarreak, adibidez), eta suak duen suntsitze ahalmenean zentratzen du bere marko ekintzaile berria. ETC-literatura, saiakera

Beraz, eraikineko zikinkeriak auzotarrek erabiltzen duten putzu septikora joan beharrean, ibaira isurtzen dira, **araztaile** batetik igaro ondoren. ETC-prentsa

Baldintza ekologiko egokian dagoen ibaia **araztaile** natural erraldoia da. ETC-prentsa

Berriro itsasora edo ibaira bota behar denean, ura **araztaile** batetik pasatzen da, beraz, jaso bezala itzultzen da. ETC-prentsa

Bilbok merezi du etorkizunari argitasunez begiratzea eta, aldi berean, azken hamarkadotan aplikatu diren politiken berrikuspen kritiko eta **araztailea** egitea. ETC-prentsa

Araztailea, beste software programa informatiko batek eginiko akatsak garbitzeko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

Mikrokontrolagailu berrienek zirkuitu **araztaile** bat izaten dute txipean bertan JTAG baten bidez atzituta firmwarearen arazketa bat egin ahal izateko. ETC-entziklopedia

---

araztasun **1** *iz* aratza denaren nolakotasuna.

Egunkariko argazkian agertua zen kaputxadunaren begien espresiorik eza aurkitu nion Gabini, edota, zehazkiago, espresio aratz beti berdina, baina askoz zirrara handiagoa egin zidan, **araztasun** eta hoztasun hura ez baitzen inola ere egokitzen haren hitzetan, haren hitz urrietan -halako esan ezin batek eteten zion jarduna- sumatu nuen emozio korapilo askagaitzarekin. Iñaki Iñurrieta

Erresuma hau santifikatua geldituko da, nik maitatua, bere Fedearen **araztasuna** eta bere errukiaren bikaintasuna direla kausa. Jon Alonso

Maldan behera ekin aurretik atzerantz begiratuko du gazte batek une batez, airearen **araztasunaren** kalitate hori begi-ninian gordetzeko bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Azken lan hau izan zen ikusleen gustukoena, baina nik uste dut, Duatorekin askotan gertatzen den moduan, gehiegizko mugimendua dagoela koreografiaren diseinuan, gehiegizko distira eta luzimendua, benetako dantzaren **araztasunaren** kaltetan. Berria - Kultura

Etikotasunaren juzgaketa bere **araztasunari** eta ondorioei dagokienez ideien arabera gertatzen da eta bere legeen betetzea maximen arabera. Ibon Uribarri

Baina ez dut neure burua sentitzen dagoeneko; inguratzen nauen **araztasunak** betetzen nau. Monika Etxebarria

Neure arrazoien **araztasunaz** segur izan naizelarik, izan dut, aitor dizut, zuk **araztasun** horrez dudarik egin ahal izan ez zenezan desiratzeko urguilua. Jon Muñoz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Kaskoaren erdialdeko soilunea alde batetik bestera estaltzen zioten ile bakan zuriek, ordea, **araztasun** perfektu baten itxura ematen zioten, beti izan baitzen oso txukuna

bere orrazkeran. Xabier Mendiguren Elizegi

Bertutea, eta berekin batera giza jakinduria, bere **araztasun** osoan ideiak dira. Ibon Uribarri

Materia galkorren eldarnio horri aurre egiteko, kristalaren **araztasun** izoztuan murgildu ninduan. Jon Muñoz

Laburbilduz, teoria bat eskatzen dutela, eta teoria hori ezin dela mamitu agertu gabe -bere **araztasun** sintetikoan- eurak eraikitzeko behar den diskurtso-egiteen eremua. Xabier Arregi

Berotasun berezi batez hornitzen du garbitasun eta **araztasun** neurritsuaren hoztasunean sorturiko guztia. Jose Morales

Naturaren joritasun itogarriaren aurrean, **araztasunik** aratzena eta sinpletasunik erabatekoena bilatu nitian. Jon Muñoz

Haren jainkosa gorputz handiarekin, haren **araztasun** eta zurbiltasun miresgarriekin, behinolako marmol eder bat bezalakoa zen. Karlos Zabala

Kortesiaz eskaintzen zien bisitariei bere aurpegiaren **araztasun** zimurrik gabea; irribarre baten itzala ere bazebilen haren ezpainetan. Monika Etxebarria

Antzeman ditzakegu konpainiaren estiloa definitzen duten ezaugarriak: mugimenduaren muturreko **araztasuna**, eta leuntasun eta energiaren arteko elkarketa artegagarria. Berria - Kultura

Lege Vokoniarra egin zen garaian, ohiturek artean gordetzen zuten beren jatorrizko **araztasuna**. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan)

Araztasun irizpidea nagusi izaten saiatu nintzen (Katalunia plazaren ondoan den tren geltokiaz ari da). Berria - Euskal Herria

Jainkoari sagaratutako pertsonak ohoratu beharra zegoen, batez ere gorputz-**araztasunaz** ideia bat eratua zuten herrietan. Iñaki Iñurrieta

---

arazte *iz* garbitzea, purifikatzea.

Biziraun, barau, gogoeta egin... Uharteko egonaldia errito iniziatikoetako katabasiaren pareko: **arazte**-errito batzuk jasaten ditu iniziatugaiak, biluzik, barau eginez bakardadean, eta lau elementuetara bidaiatzen du sinbolikoki: lurra, ura, sua eta airea. Iñaki Iñurrieta

---

araztegi 1 *iz* urari eta kidekoei lohitasunak kentzen zaizkion tresna edo instalazioa.

350 soldadu, lau helikoptero, itsasontzi bat, ura garbitzeko **araztegia** eta mediku talde bat bidaliko ditu. Berria - Harian

Bilboko Ur Partzuergoko azpikontratetako langileek salatu dute agintariek gatazka konpontzeko ezer ez dutela egin gaurdaino, eta Galindoko **araztegia** "hondakin biltegi erraldoi bat" balitz bezala erabiltzen ari direla, bertoko bizilagunen osasunari kalte eginez. Berria - Ekonomia

Hala nola Baiona/Angelu/Miarritzeko (100 000 jende ez baian) lohien tratatzeko **araztegiak** hamar bat urte honetan ezartzen ari dituzten. Herria

Irungo Bentetan jarri nahi duten errauste plantaren kontrako Txingudi Bizirik plataforma Iruñerriko Mankomunitatearen **araztegian** izan da, lokatzarekin konposta nola egiten duten ikusten. Berria - Euskal Herria

Hodi horiek ahal bezain handiak ezarri eta garraiatzen dituzten lohiak **araztegietan** (stations d'épuration) tratatu behar dira. Herria

Galindoko **araztegiko** 30.000 metro kubiko lohi ibaira bota dutela esan dute langileek. Berria - Euskal Herria

Hirietako hondakin urak **araztegietara** bideratzen dira. Berria - Gaiak

Zubero auzoko ur **araztegian** argi sortzailea jarri zuten, baina herenegun matxuratu egin zen. Berria - Euskal Herria

Miarritzen, ur **araztegi** bat gaitza estreinatu dute Marbellako aldean. Herria

2 ***hondakin uren araztegi*** *(corpusean ez dago; ETCn **58** agerraldi)*

Hondakin-uren araztegia hiri eta industria industrietan sortutako ur zikinak tratatzeko hirien inguruan sortutako azpiegiturak dira. ETC-entziklopedia

Loiolako **hondakin uren araztegiko** lehen harria jarri dute. ETC-prentsa

Izan ere, 1994. urtetik itunduta dauden Galindoko **hondakin-uren araztegiaren** eta Lamiakoko erauzgailuaren proiektuez aparte, Arabako Errioxako sail ureztatuen inbertsio berria baino ez du jasotzen. ETC-prentsa

Debako **hondakin uren araztegia** geldirik egon da, isuri bat tarteko. ETC-prentsa

Hondoan metatzen diren lohiak, berriz, Badiolegiko **hondakin uren araztegira** eramaten dituzte, Azpeitiko Lasao auzora. ETC-prentsa

Hondakin Uren Araztegia jardunean jartzeko premia ere nabaria da, gaur egungo kaiaren kanpoaldean beste kaia berri paralelo bat eraikiz. ETC-prentsa

Diputazioak Debagoieneko Epeleko **hondakin uren araztegia** egiteko aurreproiektua onartu du. ETC-prentsa

Hondakin-uren araztegia Bergarako Mekolalde auzoan kokatuta dago. ETC-prentsa

Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoa bertoko 1.200 fruta arbola eta zuhaixkak landatzen eta belardia prestatzen hasi da Galindon (Sestao), **hondakin uren araztegiaren** estazioan. ETC-prentsa

Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei, baldin eta onartzen badira Nafarroako ibaien saneamendurako plan zuzentzaileari atxikitako **hondakin uren araztegietako** lohi-lineetan, tarifa bat aplikatuko zaie tratatuak izateagatik. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 ***ur araztegi***

2006. urtera arte itxaron beharko dugu ubidea erabili ahal izateko, oraindik Iruñeko **ur araztegia** eraiki behar dugulako, eta lehenengo hektareetan ere lanak egiteke daudelako. Berria - Euskal Herria

Zubero auzoko **ur araztegian** argi sortzailea jarri zuten, baina herenegun matxuratu egin zen. Berria - Euskal Herria

Loregune berezi bat, ahal bezen aberatsa, ahal bezenbat landare eta lore motarekin, muntatzen ari dute Donibane Lohizunen, Artxiloko ezpondetarik goraxago, **ur araztegiaren** gaineko aldean. Herria

---

araztu, araz(tu), arazten du *ad* urez eta kidekoez mintzatuz, lohitasunak kendu.

Bentzenoa **araztea**, gainera, gerrak eta bonbardaketek Ikastegia utzia zuten egoeran, ez zen hutsaren hurrengoa. Juan Garzia

Urteak eta urteak ematen zituzten alkimistek laborategietan, metalak **arazten** zituen suari begira. Xabier Aranburu

Arima **arazten** duen sua, Charley. Lopez de Arana

Ez zen trebea aztertu eta neurtu beharreko produktuak **arazteko** ezinbestekotzat jotzen zituen zenbait manipulaziotan: kimikari bat behar zen horretarako, eta ni nintzen kimikari hori, ordu onean etorria. Juan Garzia

---

arba 1 *iz* abar xehea; arbazta. ik **zarba**.

Edo zuhaitz lerden bat prantatu, edo haga bat tinko zutitu, haren inguruan **arba** berdeak eta loreak, zuhaitz hori ornatzeko eta bertan festa egiteko. Pello Zabala

Egin zuen ba Santxok bere nagusiak agindu ziona, eta, Rozinanteri zela eta astoari txalma ipini ondoren, gainera igota, pausu bat eta pausu bi, **arba**-estalpean barrena sartu ziren biak. Patxi Ezkiaga

2 *iz* abar zuzen mehea, eskuarki landare batzuei eusteko jartzen dena.

Udaberri aldera, lizar adaxka lodiskonak eta xuxenenak berextu eta kimatuz lizar **arbak** egiten genituen, egur xopote baten gainean xorroxtu eta, leka aihenen euskarri patzeko baratzean. Patziku Perurena

Hasieran, **arba** gakodunak jarri eta, beste makila batzuekin lotu ondoren, buztinarekin egiten zituzten paretak. Santiago Iruretagoiena

---

arbalda **1** *iz* astoari eta kidekoei, zama garraiatzeko ezartzen zaien tresna, ez oso sendoa. ik**txalma**; **basta**[1].

Hazi batzuk ere bazekartzan, perito agrikolaren eskariz, astoaren **arbaldetan**, baratzeetan ereiteko asmoz. Joan Mari Irigoien

2 ***zelarik nahi ez duenari eman bekio arbalda*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

" **Zelarik nahi ez duenari eman bekio arbalda** " (Al que no quiera taza, taza y media), horixe da gure egunerokotasunaren tazak esateko digun guztia. ETC-prentsa

Zilarrezko zelak berak egin zion orduan barre ministroari: " **Zelarik nahi ez duenari eman bekio arbalda** ". ETC-prentsa

---

arbaso **1** *iz* familia edo herri baten jatorria gertatzen den pertsona; *batez ere pl* aitona-amonaz gorako aurrekoak.

Irudi luke, bestalde, **arbasoak arbaso** zirela izatez, **arbaso** jaio, **arbaso** bizi eta **arbaso** hil zirela, eta, nola gauza jakinegiak ahaztu egiten diren, esan egin beharko da heriotzak eta denborak dituela arbasoak **arbaso** izatera ekarri, hau da, biziaren etsai txarrenak. Iñaki Segurola

Errespetu handienarekin, ene **arbaso** Adam gaixoa jin zait gogora, zeren dohakabeari ongi baliatu baitzitzaion mahats hostoa, nahiz eta, enetzat, ifrentzuzko helburu batean dagoen delako hostoaren erabilera. Piarres Aintziart

Jauna, gure **arbaso** Abrahamen, Isaaken eta Israelen Jainkoa, egizu gure herriak iraun dezala beti era horretako jarreran, eta erakar zeuregana herri honen bihotza. Elizen arteko biblia

Jaunari atsegin zaiona egin zuen Asak, bere **arbaso** Davidek bezala. Elizen arteko biblia

Hauek dira edomdarren **arbaso** Esauren ondorengoak Seir mendialdean. Elizen arteko biblia

Hauek izan ziren lebitarrek Jaunaren etxeko zerbitzurako egin zituzten taldeak, Jaunaren, Israelen Jainkoaren, aginduz, beraien **arbaso** Aaronek ezarritakoaren arabera. Elizen arteko biblia

Ez dakit nire **arbaso** haiek damutu ote ziren, ez dakit goikoaren errukirik eskatu ote zuten. Anjel Lertxundi

Are gehiago, Rebekak bikiak izan zituen Isaak gure **arbasoagandik**. Elizen arteko biblia

-Beraz, orain badakik ezen gure **arbasoak** agramondarrak zirela, Albako dukearen eta Leringo kondearen aurka borrokatu zirenak. Joan Mari Irigoien

Diote gure **arbasoak** zirela heretikoak, juduak, mauroak, ijitoak, lepradunak, eroak, jauztekariak, bertze errorik zoin arrazetan oraino? Michel Oronoz

Hemen gaindi, lehenago iraganak zirela kartagotarrak eta erromatarrak, godoak, frankoak eta mairuak, ingelesak eta espainolak, frantsesak eta, azkenik, alemanak, baina olde arrotz guztien artetik gure **arbasoak** beti gelditu zirela euskaldun. Piarres Xarriton

Haeckelek pentsatzen zuen Lemurian zegoela gizakiaren sorlekua eta lemurak izan zitezkeela tximinoen eta gizakion **arbasoak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Geroago, Krisztina hil zuan, eta hi auskalo non bizi hintzen, eta ni hemen bizi ninduan, jauregi honetan, Krisztina hil eta gero itzuli nintzen lekuan, ni eta nire **arbasoak** jaio, bizi eta hil ziren leku berean hil nahi bainuen. Xabier Olarra

Bata zein bestea hartu, garbi dagoena da gure **arbasoak**, eskola handirik ez izan arren -edo beharbada horrexegatik-, maila handiko filosofoak zirela, maila handiko filosofoa behar baitu, itxurak itxura kasualitatea eta kausalitatea oso elkarren gertukoak direla ohartzeko. Joxerra Garzia

Zure aurrean arrotz eta etorkin besterik ez gara, gure **arbasoak** izan ziren bezala. Elizen arteko biblia

Esnea eta eztia darizkion lurralde hau eman zenien israeldarrei, **arbasoei** zin eginez agindu zenien lurraldea. Elizen arteko biblia

Bere buruarekin haserretu zen Elizabeth, neba lasaitu ordez bere onetik atera zuelako **arbasoei** buruzko galdera harekin. Anjel Lertxundi

Joera hori nabariagoa da espezieko emeagan, haren baitan **arbasoekiko** lotura estuagoa eta iraunkorragoa baita. Xabier Olarra

Biltzar osoak bedeinkatu egin zuen Jauna, bere **arbasoen** Jainkoa, eta denak ahozpeztu egin ziren Jaunaren eta erregearen aurrean. Elizen arteko biblia

-Gorde nazala Jaunak **arbasoen** ondarea zuri ematetik! Jose Antonio Mujika

Ziro Handiak mediar erregea eraitsi baino ehun urte baino lehenagotik, haren akemenestar aurrekoetako batek bereganatu zuen lehenengo beheko lur-zatira aldatu zuela gobernu-egoitza **arbasoen** goi-lurretatik. Iñaki Mendiguren

Hara, laster hilko naiz ni. Baina Jainkoa zeuekin izango duzue eta zeuen **arbasoen** lurraldera itzularaziko zaituzte. Elizen arteko biblia

Aitaren izenean eta **arbasoen** izenean hainbeste ezegiteko egin diren mundu honetan. Iñaki Segurola

Nire aginduak onartu ez zituzten **arbasoen** erruetara itzuli dira; beste jainkoen ondoren joan dira beroriek gurtzeko. Elizen arteko biblia

Edo menturaz kriminal ederren artean kokatu behar izan naute, menturaz ez didate aurkitu desarauko ezer, eta nire **arbasoen** heriotza motak ariko dira aztertzen oinorde epileptikoren baten bila, erakutsi ahal izateko nire garunen kitzikadura anormalek eroan nautela gaizkintza politikora, jainkokerian zora nintzatekeen modu berean. Koldo Izagirre

Eta ez al zetorkigun bizitza, egina eta erabakia bezala, **arbasoenganik** ondorengoenganat eta gurasoenganik seme-alabenganat, halako moldez, non zurginaren semea zurgin izanen baitzen ezinbertzean, zilarginarena zilargin, eta zapataginarena zapatagin? Joan Mari Irigoien

Pitin bat aztoratuta, baina **arbasoekin** nolabait elkarturik egon nintzela sinetsita, Labartza Barrirako bidea hartu dut. Txillardegi

Bai Israelek, bai Judak hautsi egin dute beren **arbasoekin** egin nuen ituna. Elizen arteko biblia

Agian atxikiren dituzue beti zuen mintzaia eta zuen bizimolde zaharrak; hetan duzue **arbasoetarik** ukan duzuen primantzarik baliosena! Xipri Arbelbide

Gure aitona-amonak -XX. mendearen hasieran jaiotako **arbasoez** ari naiz-, haiek bai ikusi dituztela gure aldean iraultzak eta aurrerakuntza teknologikoak: "aldatu da bai bizitza ordutik! " diote behin eta berriz. Iñaki Heras

Ez ote daukat **arbasoren** bat kapitain ausart, alferiz gazte izukaitza, edo hitz urriko negrero mutiri? Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondoekin)

Jatorri komuna: adar filogenetiko guztiek **arbaso** bakar batean dute hasiera. Askoren artean

Haur baten ondorengoa naiz, ume baten umea naiz: huraxe dut neure zinezko **arbaso** bakartzat hautatzen. Iñaki Segurola

Darwini zor zaio eboluzioa bizidun guztien arteko denborazko lotura gisa ikustea, **arbaso** komuna proposatu baitzuen, eta horrela bizitzaren zuhaitza osatu. Askoren artean

Entzunik gaude Chahok asmatu zuela Aitor, euskaldunen **arbaso** mitikoa, eta ameslari zoro hura izan zela euskal nazionalismoak egin edo eginen dituen izigarrikeria guztien aita. Piarres Xarriton

Atxik dezagun bizirik gure **arbaso** zenduen euskara zaharra eta lehia gaiten euskara batuaren ikasterat, gure hartu emanak beti hobetuz doatzila jendalde guziekin, berexkuntzarik egin gabe. Herria

Argi samar ageri bada ere gizakiak, animaliak, landareak, onddoak, mikrobioak -hots, nola edo halako bizidunok- hasierako protobakterioren batetik gatozela guztiok, ez da bihar goizeko kontua izango, ez horixe, gure **arbaso** erkide horren aurpegi zehatza ezagutzea. Juan Garzia

Hauek, zibilizazio-mailari dagokionez, ez zeudelarik Erromatar Inperioan indarrez sartzerakoan kristau bihurtu ziren **arbaso** barbaroak baino askoz gorago. Iñaki Mendiguren

Iraganaren ukoak Estebanen ukoa zekarkiola, hala bihurtu behar izan zian jaun Albert Etxegoienek **arbaso** protestanta etxeko historiaren ardi beltza. Joan Mari Irigoien

Haur baten ondorengoa naiz, ume baten umea naiz: huraxe dut neure zinezko **arbaso** bakartzat hautatzen, aitaren izenean eta arbasoen izenean hainbeste ezegiteko egin diren mundu honetan. Iñaki Segurola

Delako **arbaso** hurbil nahiz urrunak eskalapoietan itsatsirik hiriratu zuen zimaurrak munduan leku bat, bertzenaz inola ere izanen ez lukeena, ematen dio bere damuzko hiritar klase honi. Aingeru Epaltza

Paradisuko sarjentuak familiako argazkiak erakusten zizkidan, eta bitartean genealogia eta ondorengoak azaltzen, **arbaso** bibotedunak bateko, eta **arbaso** uniformedunak besteko, eta denbora bateko amonak, nekazari aurpegikoak eta lurrerainoko gonak zituztenak. Fernando Rey

Bildu eta jan, **arbaso** zahar arrotz etxekotu haien ohoretan. Patziku Perurena

Itsasoa ikusi nahi nuen, ez nire **arbaso** hortz-urdinduna zetorreneko ekaiztsu hura, baizik itsaso epela, gatza datorrenekoa. Juan Garzia

Arbaso hilak hilik utzi eta nere **arbaso** bizia dut aintzakotzat hartzen; **arbaso** ahantzia, **arbaso** atzendua, baina bizia, nahiz-eta estalia eta nere baitan itoa bezala dagoen edo datzan. Iñaki Segurola

Leopardik Homeroren pagotxaz dihardu dioenean greziar poetak dena zuela libre eta eskura, **arbaso** literariorik ez izatearen zoria eta orijinala izateko aukera izan zituela.

Anjel Lertxundi

Eguraldiaren bulego ofizialak ezarri eta gezurrean iraunarazteak frogatzen du gobernuek berek ere junglako **arbaso** basatien eragina jasan dezaketela. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

540-604 bitartean bizi izana), *Praefectus Urbi* izan ondoren, administrazio sekularra utzi egin zuen eta, Kasiodororen jarraibideari segitzeko, Erroman zuen **arbaso** -jauregia monasterio bihurtu zuen. Iñaki Mendiguren

Hona hemen Peretzengandik Davidenganainoko **arbaso** -zerrenda: Peretzek Hetzron sortu zuen, honek Ram, honek Aminadab, honek Nahxon, honek Salmon, honek Booz, honek Obed, honek Jese eta honek David. Elizen arteko biblia

Arbaso -kutsuko mugimendua duk. Xabier Olarra

4 irud/hed

Oilo etxekotuaren **arbaso** den *Gallus gallus* espeziearen kodea da argitu dutena. Berria - Gaiak

5 ***arbaso amankomun*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Kode genetikoaren unibertsaltasuna eboluzioaren aldeko pisuzko arrazoia da, hots, izaki bizidun guztiak **arbaso amankomun** batengandik datozela adierazten du. ETC-entziklopedia

Munduko beste hainbat lekutan bezala, klanak **arbaso amankomuna** zuten kideek osatuta zeuden eta, buruzagi bat zutela, eskualde geografiko zehatzak kontrolatzen zituzten. ETC-entziklopedia

5 ***arbaso komun*** *(ETCn **217** agerraldi)*

Darwini zor zaio eboluzioa bizidun guztien arteko denborazko lotura gisa ikustea, **arbaso komuna** proposatu baitzuen, eta horrela bizitzaren zuhaitza osatu. Askoren artean

Bestalde, pertsona kulto samar denok mendebaleko kulturan badakigu, gizadiaren lehen **arbaso komunak** Adan eta Eba izan zirela. Joxe Azurmendi

Horrek pertsona horiek guztiek **arbaso komun** bat izan zutela erakusten duela dio Perez-Turrek, eta denborarekin elkarrengandik bananduz joan direla oinordeko horiek guztiak. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arbaso abrahan (3); **arbaso daviden jainkoak** (3); **arbaso jakobi agindu** (3); **arbaso neftaliren** (3); **arbaso urrun** (3); **bere arbaso davidek** (5); **bere arbaso daviden** (6); **beren arbaso** (3); **ene arbaso** (3); **gure arbaso abrahami** (3); **gure arbaso haiek** (4); **jaunak zuen arbaso** (3); **nere arbaso** (4); **nire arbaso** (9); **zuen arbaso abraham** (8); **zure arbaso daviden** (3)

arbasoa da (3); **gure arbasoa beretik** (9); **lafitte gure arbasoa** (11)

arbasoak baino (5); **arbasoak bezala** (4); **arbasoak egiptora** (3); **arbasoak egiptotik atera** (3); **arbasoak ere** (5); **arbasoak izan** (3); **bere arbasoak** (4); **beren arbasoak** (3); **gure lehen arbasoak** (4); **haren arbasoak** (3); **nire arbasoak** (3); **zituen gure arbasoak** (3); **zuen arbasoak egiptotik** (5); **zure arbasoak** (4)

arbasoei agindu (3); **arbasoei eman nien** (4); **arbasoei hitz** (3); **arbasoei zin egin** (4); **arbasoei zin eginez** (17); **beraren arbasoei** (3); **gure arbasoei** (15); **jaunak zuen arbasoei** (4); **zuen arbasoei eman** (3); **zuen arbasoei zin** (10)

arbasoek ere (4); **arbasoek erranik** (3); **arbasoek ez zuten** (6); **arbasoek galdu** (3); **arbasoek inoiz** (3); **beraren arbasoek** (3); **bere arbasoek** (3); **beren arbasoek** (3); **ez zuen arbasoek** (3); **gure arbasoek ez** (6)

arbasoekin bildu (3); **arbasoekin egin** (5); **arbasoekin elkartu zen** (3); **arbasoekin elkartuko zara** (3); **bere arbasoekin elkartu** (6); **gure arbasoekin** (7); **zeure arbasoekin** (3); **zuen arbasoekin** (3)

arbasoen herria (3); **arbasoen hizkuntza** (4); **arbasoen indarra** (3); **arbasoen itzal gisa** (4); **arbasoen jainko** (3); **arbasoen jainkoaren** (5); **arbasoen lurra** (4); **arbasoen lurraldera** (4); **arbasoen ondarea** (4); **arbasoen ondoan ehortzi** (5); **bere arbasoen jainkoa** (3); **bere arbasoen ondoan** (10); **beren arbasoen jainkoa** (6); **beren arbasoen jainkoarengana** (4); **geure arbasoen** (5); **gure arbasoen ganikako** (4); **gure arbasoen jainkoa** (4); **gure arbasoen jainkoak** (8); **jaunak zeuen arbasoen** (3); **jaunak zuen arbasoen** (3); **nire arbasoen** (4); **zeuen arbasoen jainkoak** (4); **zuen arbasoen jainkoak** (6); **zure arbasoen** (4)

gure arbasoena (3)

---

arbasta ik **arbazta**.

---

arbastatu, arbasta, arbastatzen du *ad* landu nahi den egurrari edo harriari zatirik handienak kendu.

Eskultore hitzak berak hori esan nahi du, eskuekin landu, ezta? «Eskultura, batez ere, zizelkatzea da, **arbastatzea**, kentzea Berria - Kultura

Gero, moztu eta **arbastatzen** direnean beren bizi-indarra galtzen dute: zainak zurrun eta irekita geratzen zaizkielarik, lehortu egiten dira, eta hutsuneen eraginez ahul eta indarge bihurtzen dira, eta eraikuntzan ez dute luzaro irauten. Santiago Iruretagoiena

Raimundo Silvak nahiago zukeen bere ondoan Maria Sara eduki, guztiz ezezagun zaizkion operazioen berri ematen ibili baino, zutabeak apailatzea, oholak **arbastatzea**, klabijak zorroztea, sokak txirikordatzea, poliki-poliki dorrea altxatzea posible egiten duten operazio horiek guztiak. Jon Alonso

Orduan pentsatu zuten metal haiek, sutan urturik, gauzen edozein forma eta itxura har zezaketela eta, forjaturik, puntaedo aho bihurtzeraino zorroz eta mehe zitezkeela, armaz hornitzeko eta basoak mozteko, zura **arbastatzeko** eta oholak karraskatzeko, leuntzeko, zulatzeko, husteko eta perforatzeko. Xabier Amuriza

---

arbazta *(orobat **arbasta**) iz* abar xehea, eskuarki zuhaitzetik erauziz gero.

Goizean, prozesioan joaten zen dotore erregea, koroa eta longain urdina jantzita, eta aginte makila zeramala; haren aurrean txepetxa eramaten zuten, haga baten puntan loturik, mihuradun haritz **arbazta** batez apaindua. Patziku Perurena

Kapazoan egur eta **arbazta** batzuk sartu, lizar adar bat erdibitu zuen aizkora txikiaz. Pablo Sastre

Agindua eman zitzaien gotorlekura inguratu eta **arbaztez** egindako balak lotu eta zuziak piztuz haien kontra botatzeko. Santiago Iruretagoiena

Sua, zur-mota haren inguruan jarritako **arbaztetan** hartu zuenean, zeruraino igo zen, eta pentsarazi zien masa hura dena gainbehera eroriko zela. Santiago Iruretagoiena

Josebak adar bat moztu dio sastraka bati, eta makila itxura ematen hazi zaio **arbaztak** kenduz. Bernardo Atxaga

Lizar **arbaztak** erabili ohi dira oraindik leku askotan Donibane bezperan etxe atariak apaintzeko. Patziku Perurena

Etxeak bazuen atzeko aldean adobezko hesi-horma bat, **arbaztaz** estalia. Josu Zabaleta

-Oker ez banago, **arbazta** -estalki horretatik, badator alde honetatik halako hats usaina eta ez txarpot-ihiena; urdai frijitu-usaina da noski; oparoak eta eskuzabalak izan behar honelako usainez hasten diren ezteiak. Patxi Ezkiaga

---

arbaztatxo *iz adkor* arbazta txikia.

Gure sanjoanak iristean, hemen elorri txuri zarba bat eta lizarrarena, atearen alde banatan ipintzen diren bezala, Txina aldean sahats **arbaztatxoak** lotzen omen ziren. Pello Zabala

---

arbel **1** *iz* harri belzkara, orri gisako zatietan puskatzen dena, hezetasunari igarotzen uzten ez diona.

Gorria ez baina grisa da **arbela**, eta mea beltz horrez beterik zeuden Itsasondoko bazterrak. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta ez da falta eskolako gela bat: **arbelak**, idazmahaiak, tintontziak, mapa zaharrak. Berria - Kultura

Konta dezadan soilik, istorio honetarako nahikoa izango delakoan, XIX. mendearen azken laurdenerako martxan zegoela Itsasondon **arbel** ateratzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Liburu hau, hasieran konturatzen ez nintzen arren, itzalei buruzkoa da batez ere; **arbelaren** hautsaren antzeko zerbait pausatzen da bere orrietan, iraganaren marka bailitzan. Xabier Mendiguren Elizegi

Ermita kaxkar bat ikusi baitu, harri eta **arbelez** egina, goibela bera ere, baina txanponez betea aldarearen inguru guztian. Bernardo Atxaga

Elizak **arbelez** egindako teilatua zeukan, eta erlojuak soinu zakar bat ateratzen zuen ordua jotzen zuen bakoitzean. Rafa Egiguren

Arbelez egindako mahai biribil ederrean ematen omen zieten hamaiketakoa, afari-merienda edo dena delakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Liburuaren amaieran, Itsasondo **arbelez** hustu den bezala jendez ere husten ari dela dio: [...]. Berria - Kultura

Haien atzean, erdi ezkutaturik, gaur dekadentetzat dauzkagun frantses-estiloko txalet aspaldikoak, beren harrizko fatxadaz eta **arbelezko** teilatuaz. Anjel Lertxundi

Arbelezko teilatuan behera labaindu naun, hori gogoan zeukanat. Anton Garikano

Bideak kosta inguruko gainetatik egiten zuen, mendia ebakiz, eta **arbelezko** geruza ia bertikalak uzten zituen agerian. Ramon Saizarbitoria

Honen atzean, azkenik, eta eskuin aldera joaz, Balda-Matheu kasinoko soslai berezia eta **arbelezko** bere teilatu desberdina nabarmentzen ziren. Txillardegi

Arbelezkoa zen herri horretako lurpe gehiena. Xabier Mendiguren Elizegi

Lau dorre zituen, horma bakoitzean bana, biribilak laurak, kanpai itxurako sabaidunak, **arbelezkoak** guztiz. Felipe Juaristi

Arbeletan ira enbor fosilak aurkitu dira. Joseba Sarrionandia

Gerra aurrean, baziren Etxezakortari eta Manuel Gelatxori **arbelezko** diskoetan Regal etxeak gramolarako eginiko grabazioak. Iñigo Aranbarri

Minervaren tenplua **arbeltzat** du hartu // turistak, bere izena han zirriborratu, Xabier Olarra

2 arbelezko laukia, teilatuetan eta jartzen dena.

Bat-batean eliza dorrearen **arbelak** ilargiaren distiraz jabetzen dira. Michel Oronoz

Sebastopol bulebarreko etxeak beltz-beltzak ageri ziren; eta, **arbelen** lerro garbiaren gainetik, estalpeko kale nagusiaren gangaren armazoi garaiak argitasunezko ilargi erdi bat ebakitzen zuen zeruaren urdin zurbilean. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan)

Arbel meatzean aritu zen lanean, harik eta, 50 bat urte zituela, medikuak silikosia diagnostikatu eta lanerako ezgauza izendatu zuten arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Anaiarekin haserretu eta Arriaranen jarri zuen bere **arbel**-meategia, jabez aldatuta oraindik ere martxan segitzen duena. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere aita, Manuel Sarasola, herriko **arbel**-harrobiko nagusia zen, bertako gizonik ahaltsu eta aberatsena. Xabier Mendiguren Elizegi

Arbel-mendiaren beheko aldean geratu da bera, eta jaistea baino zailago iruditzen zaio orain igotzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Herriko estilo patriarkalak izango zuen eragina Sarasola familiak **arbel**-negozioarekin normal-normal segi zezan. Xabier Mendiguren Elizegi

Han ondoan, harrobi bat ikusi omen zuen, eta mendian ebakitako **arbel**-xaflek, arrastiriko eguzkipean, distira harrigarri bezain ederrak botatzen omen zituzten. Xabier Mendiguren Elizegi

Bakarrik ibiltzen nintzen, Beitiko iturriko askan hesiak edo txalupatxoak asmatzen, **arbel** hondarren pila batean harri-xafla politen bat bilatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Iraileko haize freskoak altzairuzko distira ematen zien portuko uhin kizkurrei eta **arbel**-koloreko zeru ilunari. Lopez de Arana

Egun sargori baten ondoren, **arbel** koloreko ekaitz eskerga batek ezkutatua zuen zerua. Juan Garzia

Gelaren hormak **arbel** kolorekoak ziren, solairua lurra bezain arre. Anton Garikano

Leihotik Hudson ibai **arbel**-kolorekoari begira zeuden, baita gerraontzi ainguratu batzuei eta ibaian gora bira egiten ari zen goleta bati ere. Lopez de Arana

Emakume-ahots hark kirrinka eragin zion Harlandi belarrietan, klarionak **arbel** gainean sortarazten duen gisa berean. Lopez de Arana

4 (izenondoekin)

Arbelarena ez zen ordurako negozio ona; panel elektrikoak izan ziren garai batean alor emankorra, baina bakelitak aurrena eta plastikoak gero eman zioten errematea; eskolan ere **arbel** handi bakarra nahikoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Horixe da zuk nahi zenukeena -idatzi zuen astiro-astiro **arbel** elektroniko estreinatu berrian-, zure emazteak inoiz jan ez dizuna nik jan niezazun, urde alaena! Karlos Linazasoro

5 irud/hed

Arbelezko zerua, eraikin garaien artean itoa, berrogeita hamar zentaboko txanponak jaurtitzen ari zen espaloi gainera. Lopez de Arana

Hodei beltzen zamaz erortzear dirudien zeruak eta haren kontra aparrezko haserrea jaurtitzen duen itsaso **arbelezkoak** ez lukete nire gogoa goibeltzeko botererik. Ramon Saizarbitoria

6 arbelezko ohol modukoa, bertan idazteko eskoletan erabiltzen dena.

Arbel batean marrazturiko zirkunferentzia bat, triangelu bat, erronbo bat, osoki hauteman ditzakegun formak dira. Juan Garzia

Eskolak emateko, zuk esan duzuna, **arbela** eta klariona. Berria - Euskal Herria

Adrianek bere zurezko figurak egiteko erabiltzen zuen etxola prestatuko zela ikasgelatzat, adierazi zidan, eskatuta zeuzkatela mahaiak eta **arbela**, eta estufa ere berria ekarriko zutela negurako. Bernardo Atxaga

Arbela bete-bete egiten zuen liburu gomendagarrien izenekin. Ana Urkiza

Richard uneka-uneka puzten zen, ikasle mukitsuek **arbelaren** aurrean ernegarazten duten seminaristaren eran. Harkaitz Cano

Besoa berriz tapakien azpian jarri eta zerbait idatzi zuen oheari erantsita zegoen **arbelean**. Koro Navarro

Ikastaroa beti **arbelean** klarionaz idatziz hasten zen: [...]. Juan Kruz Igerabide

Sinadurarik gabe, Angiek ez zekien nor zitekeen igorlea, baina irakaslea **arbelerantz** bueltaturik zela, papertxo bat pasatu zion zinerako gonbitarekin. Iñaki Zabaleta

Denak prest geundela ziurtatu ondoren, testua **arbelean** izkiriatzen hasten zen. Joseba Sarrionandia

Azterketetako galderak **arbelean** idatzi behar izaten genituen. Joxerra Garzia

-Beraz: a2/b2=2- uztartu zuen Léak, **arbelean** idatziz. Anton Garikano

Klasera sartu ginenerako bera **arbelean** ari zen koloretako klarionez mapa bat marrazten. Joseba Sarrionandia

Lauzpabost urteko haurra eskutik hartu, eta **arbel** txiki baten aurrera eramaten dute. Anjel Lertxundi

Arbel zabala ere han zegoen, ezer izkiriatu gabe oraindik, beltz garbia, eta **arbelaren** gainean Francisco Francoren erretratua. Joseba Sarrionandia

Arbel batean idatzi eta marraztutakoak ezabatu eta gero gelditu ohi diren klarion-mantxa islarik gabeak ziren Bostongo kale, plaza eta etxadiak. Anjel Lertxundi

Munduaren sorrera ispilu batean bezala islaturik zegoen gauaren biluztasunean, eta hantxe iltzaturik zeukan etorkizuna, argizko iltzeekin, mugarik gabeko **arbelean**. Juan Kruz Igerabide

7 ***arbel bituminoso*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Kalkulurik baikorrenak onartuta ere, non petrolio produkzioa hobetu ahalko litzatekeen lurpetik ateratzeko metodoak hobetzearekin, petrolio ez-konbentzionalak **arbel bituminosoak** edo harea asfaltodunak, adibidez) garatzearekin, hala eta guztiz ere petrolio produzioak presio handia jasango du etorkizunean (2030ean) 118 milioi upel-eguneko eskaria asetzeko. ETC-prentsa

8 ***arbel digital*** *(corpusean ez dago; ETCn **69** agerraldi)*

Arbel digitalak sartzen ari dira ikasgeletara. ETC-prentsa

Izan ere, zertarako erosi orain Kindle bat, baldin eta laster batean Applen **arbel digitala** etortzen bada, koloretan eta teknologia askoz aurreratuagoarekin? ETC-prentsa

Hori jakinda, **arbel digital** batean azalpenak eman ahal izango dizkio gaixoari. ETC-prentsa

Nafarroako eskolek **arbel digital** interaktiboak izango dituzte. ETC-prentsa

Ikasturtea bukatzean, **arbel digital** bat zozkatuko dute parte-hartzaileen artean. ETC-prentsa

Alferrik da ikasgelan **arbel digital** bat edo dokumentuen irakurgailuak jartzea, irakasleek horiek nola erabili ez badakite. ETC-prentsa

Ordenagailu berriak, **arbel digitala**, ultraeramangarriak eskuratu dituzte, baina ikastola berria martxan jartzen ahitu dituzte indarrak. ETC-prentsa

Ohiko arbela geroz eta gutxiago erabiltzen da, eta, haren ordez, geroz eta gehiago erabiltzen dira ordenagailua, **arbel digitala** eta ukimenezko pantailak dituzten miniatura-

gailuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eraikuntza hori eredu manipulatibo gisa erabiltzen da eta haren erabilera **arbel digital** batekin osagarria da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, Eskola 2.0, batik bat, eskolen azpiegitura teknologikoaz arduratu zen: ikasle zein irakasleentzako ordenagailu eramangarriak, ikasgela bakoitzean **arbel digital** bat eta Internet konexioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egun ordenagailu bati loturiko bideo proiektore edo **arbel digital** batez egiten dira. ETC-entziklopedia

9 *arbel egin* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Eta hain zuzen horrexegatik esan dezakegu **arbel egiteko** beldurrik gabe epopeia handia izan zela orain 80 urte ero haiek burutu zutena, alegia, euskara hutsean egindako egunkari bat ateratzea, lehenbizikoa, noiz eta gerra betean. ETC-prentsa

10 *arbel elektroniko*

"Horixe da zuk nahi zenukeena -idatzi zuen astiro-astiro **arbel elektroniko** estreinatu berrian-, zure emazteak inoiz jan ez dizuna nik jan niezazun, urde alaena!". Karlos Linazasoro

11 *arbel-gas* *(corpusean ez dago; ETCn 27 agerraldi)*

Eskisto-gasa, batzuetan **arbel-gasa**, gas natural mota bat da, eskistoa (edo arbela) ugari dagoen lurretan ustiatzen dena. ETC-entziklopedia

Petrolioa bukatzen ari da, eta haren espekulatzaileak gelditzen den kakan arakatzen ari dira, **arbel gasa** bezala, azken horren eraginkortasuna batetik hirukoa delarik. ETC-prentsa

Koldok ahoa zabaldu baino lehenago, azkar eta gelditu gabe erantzun du Aimarrek: **arbel-gasa** dagoela herriko lurzoru guztien azpi-azpian, eta handik ateratzeko lur azpiko harriak apurtu behar dituztela, eta hausteko ura eta sustantzia kimikoak sartuko dituztela. ETC-prentsa

Arbel-gasaren kasuan, askoz baxuagoa da tasa: upel batez hiru lortzen ditugu. ETC-prentsa

Lehenago adierazi dugunez, **arbel-gasarentzat** alternatibak bilatzeko gas naturalaren erabilerarentzat alternatibak bilatu behar dira. ETC-prentsa

Genték kontatu zuen nola iazko uztailean bilduak ziren gas natural konbentzionalen ekoizle nagusiak (Errusia, Iran, Qatar, Bolivia...) **arbel gas** berriaren aurrean estrategia adosteko. ETC-prentsa

Orduan, zergatik hainbeste interes **arbel gasa** ateratzeko? Orain dela mende bat, hidrokarburoak ateratzen hasi zirenean, inbertituriko barril bakoitzarekin ia 100 barril ateratzea lortzen zuten. ETC-prentsa

12 *arbel zuri*

Zerua **arbel-zuri** zegoenez ezinezkoa zen egun hartan lainoen gainean jolasean aritzea, eta indoor modalitatean jardutea erabaki zuten, joko-zelaia sala barrura murriztuta. Harkaitz Cano

Ohatilak, jendea, gaixoak, hilak, biziak, negarrak, oihuak, **arbel zurien** gainean aise ezaba zitezkeen zirriborroak baino ez ziren haiek guztiak. Harkaitz Cano

13 *arbeleko letra lodi* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Arbeleko letra lodia edo blackboard bold ingelesez, sinbolo jakin batzuetarako testu matematikoetan erabilitako tipografia da. ETC-entziklopedia

14 *kanban arbel* *(corpusean ez dago; ETCn 12 agerraldi)*

Kanban arbel edo kanban taula bat kanban prozesua ezartzeko erabil daitekeen tresnetako bat da, maila pertsonalean edo erakunde baten antolakuntza mailan lana kudeatzeko lagundu dezakeen tresna. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arbel aldera** (3); **arbel batean** (7); **arbel handi** (3); **arbel koloreko** (5)
> **arbelaren aurrean** (4); **arbelaren gainean** (9)
> **arbelean bezala** (3); **arbelean idatzi** (5)
> **arbelezko teilatu** (4); **arbelezko teilatuak** (4)

---

arbeldun *izond* arbela duena.

Oteitzaren kafetegi berria neukan aurrealdean, eta Matheu-Balda Hotel gaitz **arbelduna** atzeraxeago. Txillardegi

---

arbeletxeko *iz* albertxikoa.

Izan ere, klimatologiaren eraginez, fruituak gehiago heldu baitira, eta aurtengo aroma fruitu helduari dagokiona da (udare, **arbeletxeko**, banana eta ananari). Berria - Euskal Herria

Izan ere, eskaintzen zidaten menua ez zen oso aldakorra: batzuetan okaranezko marmelada, beste batzuetan marrubizkoa, edo bestela **arbeletxekozkoa**, edo beste edozein fruituz egindakoa, beti ere mariskoaz konbinaturik, noski. Jon Arretxe

---

arbelgintza *iz* arbelak egiteko lanbidea.

Oteitzaren kafetegi berria neukan aurrealdean, eta Matheu-Balda Hotel gaitz **arbelduna** atzeraxeago. Txillardegi

---

arbelkara 1 *izond* arbelaren kolorekoa.

Betiko gris **arbelkara** du gaur ere zeruak. Anjel Lertxundi

Ada hilda dago, ordea, eta malenkoniak ez dit zeruaren gris **arbelkara** astunagotzea beste deus ekarriko. Anjel Lertxundi

2 *leming arbelkara* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Leming arbelkara ("Myopus schisticolor") Myopus generoko animalia da. Karraskarien barruko Arvicolinae azpifamilia eta Cricetidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

---

arbeltsu *izond* arbelkara; arbel asko duena.

Kumulu batek elurrezko bere zuritasun sinesgaitza zabaldu zuen zeru **arbeltsuan** gaindi. Lopez de Arana

Badia bateko ur **arbeltsu** hilak ikusten zituen, itsaskiaren higidura urrunak ozta-ozta inarrosten zituenak. Karlos Zabala

---

arbeltx *iz* izkatz fosila, trinkoa, kolore arre edo beltza duena, zuretik datorrena.

Etxekoandrea emakume ilebeltz, azal zuriko bat zen, aurpegia ia perfektua zuena; Ama Doloretakoaren itxura zuen; begiak beltz-beltzak, eta ilea distiratsua, **arbeltxa** bailitzan. Josu Zabaleta

Aurpegia hartu zidan bi eskuen artean, begietara peto begiratu, bere **arbeltx**-distira harekin, eta esan zidan: [...]. Juan Kruz Igerabide

arbeltxo *iz* arbel txikia.

-2ren erroaren irrazionaltasuna absurdoaren bidez frogatua -iragarri zuen Léak ozen, Maxek lehen hezkuntzan erabiltzen zuen **arbeltxoa** atereaz. Jon Muñoz

Arbelarena ez zen ordurako negozio ona; panel elektrikoak izan ziren garai batean alor emankorra, baina bakelitak aurrena eta plastikoak gero eman zioten erreматea; eskolan ere arbel handi bakarra nahikoa, ikasleek papera zerabilten aspaldian **arbeltxo** pertsonalaren ordez. Xabier Mendiguren Elizegi

---

arbendol *(orobat **armendol** g.er.)* **1** *iz* arbendolondoaren fruitua, eta eskuarki haren barneko hazia, jateko oso ona. ik **almendra**; **amanda**[2].

Begi beltxak, finak, **arbendolen** amanda forman eztiki marraztuak. Ramuntxo Etxeberri

Atea itxi eta halako sunda bat barreiatu zen etxe guztian, kamamila urarena, edo esne gatzatuarena, edo **arbendolarena**. Joseba Sarrionandia

Gero, pastelak, galletak, gerezi tartak, **arbendol** opil kurruskatsuak, arto bizkotxoak, lodiak eta horiak, izan zituen saltzeko, zume gurutzatu batzuen gainean; baina Marjolinek jan zizkion gehienak. Karlos Zabala

Hura zen haren **arbendol** krema, ukendu horri esker eusten zien azal zuriari, azazkal arrosei, eta bazirudien haren hatz zaluek ore haren malgutasuna bereganatua zutela. Karlos Zabala

Hamar aldiz bueltatzen zen, hango chantillyzko pastelak, kremazkoak, ron eta patsezkoak, txokolatez betetakoak, bizkotxo bustiak, **arbendol** tartak, flanak, fruta opilak eta bestelako tartak berriz ikusteko. Karlos Zabala

Arbendol heldugabea. Berria - Kirola

2 ***arbendol azukregorritu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* ik **arbendol garrapiñatu**; **azukre-almendra**; **almendra azukregorritu**.

Arbendol garrapiñatuak edo **arbendol azukregorrituak**, gordinik daudela, karamelizaturiko azukrez eginiko karameluzko estalki bat gehitzen zaien (alegia, azukregorritzen diren) arbendolei deritze. ETC-entziklopedia

3 ***arbendol garrapiñatu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* ik **arbendol azukregorritu**; **azukre-almendra**; **almendra garrapiñatu**.

Arbendol garrapiñatuak edo arbendol azukregorrituak, gordinik daudela, karamelizaturiko azukrez eginiko karameluzko estalki bat gehitzen zaien (alegia, azukregorritzen diren) arbendolei deritze. ETC-entziklopedia

---

arbendolondo *iz* oso goiz loratzen den zuhaitza, fruitutzat almendra ematen duena*(Prunus amygdalus)*. ik **almendrondo**.

Neska-mutil taldea **arbendolondo** baten azpian jarri, eta gitarra joz eta gitarra entzunez ematen zituzten orduak. Aritz Gorrotxategi

"Egia esan", pentsatu zuen bere kolkorako, **"arbendolondo** ilarek inguratzen zuten bidea ez dago oso aldatua". Aritz Gorrotxategi

---

arberaztar *izond* Nafarroa Behereko Arberatze-Zilhekoakoa.

Gutartekoak dira: Sebastien Aguerre itsasuarra, Patrick Aguerre hau ere itsasuarra, Eric Alcacebe santagraztarra, Jakes Salaberrenborde mithirindarra, Frederic Arburua ezpeletarra eta Peio Domecq **arberaztarra**, gaur Bidarrain bizi dena. Herria

Hark, behin baizik ez zituen ikusiak bere ahaide **arberaztarrak**, Garrüzeko ferian, eta behin ere ez ariatarrak. Aingeru Epaltza

---

arbi **1** *iz* baratze landarea, sustraia mamitsua eta jateko ona duena, abereen eta gizakien elikagaia dena*(Brassica napus)*.

Mendian aurkitutakoa jaten zuen: mahats ale lehorrak, almendrak, mertxikak, pikua, **arbiak**; eta edan, mendi ura soilik. Felipe Juaristi

Eltzekarirako barazki sorta lotuak ere saltzen zituen: lau porru, hiru azenario, txiribi bat, bi **arbi**, bi apio hosto. Karlos Zabala

Bi libra **arbi** bi pezetatan ordaintzen zen. Joseba Sarrionandia

Orria irtetean, alegia, artoa; orria erortzerakoan, garia; eta San Lorentzotan, **arbia**. Pello Zabala

Nik lihoa landatuko nuke, eta lihoak bakarrik bost mila errublo utziko lizkidake; **arbia** ereingo nuke, eta lau mila errublo irabaziko nituzke **arbiei** esker. Jose Morales

Oinez jarraitu zuen, **arbiei** hozkaka pozik. Anton Garikano

Ezin zuen garia ebaki eta jo, eguraldi eguzkitsua ez bazen, ezta **arbirik** erein ere, eta gutxiago belarrak ondu. barazki usaina zerion, hantxe gorde baitzituen andre zaharrak luzaro bere **arbiak**, azenarioak, porruak eta beste, oihal busti batzuen azpian. Pello Zabala

Nor bere tenporako, **arbia** abendoko. Pello Zabala

Geldiro-geldiro zihoazen, azenarioz, **arbiz** eta azaz beterik. Josu Zabaleta

Hemen janari-eskasia handia zegoen, eta gosearen zimikoa bi ogi-mokadu eta zazpi **arbiz** eta egarria bihotzeko pozez baretu zuten, edo, hobeki esan, bizkortu. Askoren artean

2 (izenondoekin)

Arbi mamitsu bat bezain lerden eta mardula zen neskagazte odol-bizi bat. Jose Morales

Arbi erre eta gaztainekin gobernatutako asaba franko izango ziren garai batean. Pello Zabala

Arbi errea abenduko, gauza guztiak bere garaiko. Pello Zabala

Borborrean zegoen lapiko handiko **arbi**-egosiaren usain berezia. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan)

-Ez zen hemen ibiltzen -jarraitu zuen-, **arbi** leku honetan zer dago ba lapurtzeko? Jon Maia

Gaurko baserria (bi esne-behi, bi zekor, astoa, sei oilo, bi oilar, **arbi**-saila, hiru belaze, hektarea erdia artadi, ortu txikian berrogei tomate, hirurehun letxu, ehun leka-makila, perrexil txorta eta txerri txiki bat) iraupenekoa da, XVI. mendeko gorabeherei zegokiena, dirurik eta merkaturik ez zegoeneko sasoietakoa. Edorta Agirre

Sukaldetik **arbi** usaina zetorren, Juanen aita han zegoen, mahaian jarrita, isilik. Jon Maia

Ama Chantemessek hamabi **arbi** sorta erosi zituen azkenean. Karlos Zabala

Gas argiontzi batek, ilunarte batetik irtendakoan, zapata baten iltzeak, blusa baten orban urdina, txapel baten punta argiztatzen zituen, ozta-ozta baino bereizten ez baziren ere, azenario sorta gorriez, **arbi** sorta zuriez, ilar eta aza pila berde biziez osaturiko loratze jori hartan. Karlos Zabala

Bazkaritarako asteko menua honela izaten da: babarrun pintoak, ilar zopa, patatak irinezko albondigekin, patata cholent; geroztik, Jainkoaren opari bezala, **arbi**-hostoak edo azenario ustelak, eta gero berriro babarrunak. Josu Zabaleta

Zopa bazka-erremolatxa eta **arbi**-azaz egina zen egun hartan, nik oso maite nuena. usain garratz hari urrundik igarri nion, zalantza barik, **arbi**-zopa zela. Urtzi Urrutikoetxea

Zopa gauzatxo berde batzuekin, bildots errea, patata-purea, **arbi**-purea, espinakak, ezer ez postrerako. Lopez de Arana

Arbi-haziak oraintxe izan behar du bere garaia. Pello Zabala

Ziazerba eta mingarratz alorrek, errefau, **arbi** eta azenario zerrendek, patata eta aza landare handiek beren zamau erregularrak hedatzen zituzten, beren lurrustel beltza zabaltzen, hostoen mototsek berdetua. Karlos Zabala

4 ***arbi-aza***

Ilar hotsaren gainetik eta egosten jarritako **arbi-azaren** usain gogorraren gainetik, Sethek antzina belarrietan eramandako kristalena kontatu zuen. Anton Garikano

Zopa bazka-erremolatxa eta **arbi-azaz** egina zen egun hartan, nik oso maite nuena, eta Revier-erako lodi-lodi ateratzen zuten, horrek ere asko poztu ninduen. Urtzi Urrutikoetxea

Lau haizeetara iragarri zituzten, lotsaren arrastorik gabe, espezie bat beste bat bihurtzeko beren esperimentuak: garia zekale, oloa garagar, aza **arbi-aza**, eta gero hura izei. Juan Garzia

Aldi batean eskarola baizik ez genuen jateko: eskarola harearekin, harearik gabe, patata purearekin, hutsik edo eltzekoan; geroztik espinakak, **arbi-azak**, terebuzak, luzokerrak, tomateak, xukruta, eta abar. Josu Zabaleta

5 ***arbi biribil*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arbi biribila ("Brassica rapa") barazki gisa erabiltzen den sustrai eta hosto jangarridun landarea da. ETC-entziklopedia

6 ***arbi-lore*** *(orobat **arbilore**)* arbiaren lorea.

Amets bat egin nuen: gizon bat, kasko eta guzti, galtzak orpoetan, niri deika eta keinuka sastraka baten izkina batetik; sastrakak errefau- eta **arbi-lore** sail bat inguratzen zuen. Juan Kruz Igerabide

Erle burrunbariak eta tximeletak **arbi lore** more eta zurien gainean hegan zebiltzan. Juan Kruz Igerabide

Ba, sinistuko duzue, kasu zipitzik ere ez dio egiten bere biloba bakarrari, ezta **arbi-loretik arbi-lorera** bisitan joaten garenean ere. Patxi Iturritegi

Artoak eta gariak bezalaxe, arbiak ere, ereiten denetik garatzen deneraino, **arbilore** hori-horiz dena janzten dueneino, urtearen mugarriak markatzen zituen baserrian. Pello Zabala

Edozein akordatuko da nola, garizuma aurrera zihoan heinean, **arbilorearen** kontuak harrotzen ziren: "Garizuma santua aurreratua dagoelarik, eta arbiyak loretan, zeñak, esaera oi dan bezela, oroitu-erazitzen dien bekatariari konfesatu eta penitentzia egiteko denbora dala". Pello Zabala

7 ***arbi-loretik arbi-lorera***

Ba, sinistuko duzue, kasu zipitzik ere ez dio egiten bere biloba bakarrari, ezta **arbi-loretik arbi-lorera** bisitan joaten garenean ere. Patxi Iturritegi

8 ***bazka-arbi*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Bazka-arbia "Brassica napus" L. var "napobrassica" (L) Rchb., Brassicaceae. ETC-entziklopedia

9 ***olio-arbi*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Gobernuarentzat ere zaila zen; irakasleen soldatak ere atzerapenez ordaintzen zituzten maiz, funtzionarioen soldatak maileguen menpe zeuden... buruaskitasun-bideak garatu behar ziren, uholdeen ondoren jendea **olio-arbia** ahalik eta azkarren ereiten ahalegintzen den bezala. ETC-literatura, saiakera

Senide duen Brassica napusvar Oelifera, **olio-arbiarenaren** edo koltzarenaren tankerako olio hau afrodisiako latza omen da. ETC-prentsa

Talidominarekin sortu du eta bere garaian **olio-arbiarekin** ere bai, ba sortu dezala amiantoarekin ere. ETC-prentsa

Garciak gogora ekarri du orain dela bi hamarkada inguru Espainian nagusitu zen **olio-arbiaren** krisi larria, zeinak dozenaka biktima eragin zituen. ETC-prentsa

Olio-arbiarentzat eta Nafarroako hegoaldeko idorreko arto gogorrarentzat, aldiz, urte txarra izan da; ekoizpenak %70 egin du behera. ETC-prentsa

Uzta bilketa garagarrarekin hasten da, lehenago ontzen delako, eta tartean biltzen dira ilarra, **olio-arbia**, oloa eta, geroago, ekilorea ere. ETC-prentsa

Glukosinolatoek landare-defentsan duten zereginaren gaineko azken ikerketa gehienak **olio-arbi** edo kanolarekin (Brassica napus) egin dira, hots, Ipar Amerikako eta Europako hazi oliotsudunen labore nagusiarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gaur egun ekoizpen handieneko landare transgenikoak soja, artoa, kotoia, eta arbia (**olio-arbia**) dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arbi errea** (3); **arbi sorta** (4)

---

arbiburu *iz* arbiaren burua.

Arbiburu gorri galantak erretiratu ondoren, soroan gelditu diren zorton edo zurtoin erdi-iharrak denak erre, eta bakea! Pello Zabala

---

arbigara *iz* arbiaren gara.

Behin, guraso batzuek beren etxean bazkaltzera gonbidatu nindutelarik, jaki niretzat ezezaguna jarri zidaten platerean, ilusiorik handienaz: **arbigarak**. Joxerra Garzia

Arbiaren garak dira **arbigarak**, eta zinez dira jaki ederra. Joxerra Garzia

Niri neuri, "garatu" erabiltzen dudan bakoitzean, Arrasateko **arbigarak** etortzen zaizkit gogora, eta, listu-bide guztiak jario batean ditudala, berehala naiz gose puntu gozoan. Joxerra Garzia

---

arbilore ik **arbi 4**.

---

arbin *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi) izond* abaildua, larria.

Larriagoak izan ziren bat eta bi eta asko, eta izango agian, baina egun hura bezain **arbinik** ez genuen gogoratzen. ETC-literatura, saiakera

Gaztelutik, Zite- **arbinetik** Muntsaratsen zehar Atxarterantz egin zuten, eta haitz barrenerantz hartu. ETC-literatura, saiakera

Plevljarra estu eta **arbin** zebilen; lur kolorekoa zeukan begitartea eta begiak gorriturik. ETC-literatura, saiakera

Eguraldi sargoritsuarengatik-edo, **arbin** zebilen bolada hartan zekorra. ETC-literatura, saiakera

---

arbindu, arbin(du), arbintzen du *ad* abaildu, larritu.

Agian azkarregi joan naiz, harridurak **arbindu** baitu bere aurpegiko lur erreantzean. Pako Aristi

---

arbitraia ik **arbitraje**.

---

arbitraje *(orobat **arbitraia** g.er.)* **1** *iz* gatazkak erabakitzeko prozedura, bitartekari lana egiten duen norbaiten bitartez gauzatzen dena.

Alderdi teknikotik, ongi abiatua zirudien auziak, baina ez zegoen garbi erretxina akastunaren lotea non eta zertan geratuko zen: edo prezioaren gaineko deskontu batekin gure esku gelditu zen, edo W.ren bizkar berresportatuko behar zen, edo **arbitraje** bat eskatuko genuen. Juan Garzia

Etzi erabakiko du Basauriko Udalak **Arbitrajea** onartzen duen. Berria - Ekonomia

Haien etxeetan, izan ere, askotan egiten baitira bilera publikoak eta judizio pribatuak eta **arbitrajeak**. Santiago Iruretagoiena

GATTen kasuan ez bezala -GATTen, **arbitrajeak** , baliagarriak izateko, alde guztiek onartu behar zituzten, salatuak barne-, MMEren ezadostasunak arautzeko mekanismoak ez du beto-eskubiderik onartzen. Koro Navarro

Izar patronalak eta SEPIk egoera konpontzeko tresna egokiena **arbitraia** dela ziurtatu dute. Berria - Ekonomia

Enkantea ez ezik, zerga eskakizunak konpontzeko Errusiako Gobernuak **arbitraia** onartu dezala eskatu dio Jukosek Houstongo auzitegiari. Berria - Ekonomia

Estanflazioak, izan ere, koiunturazko politikaren usadiozko egitura desegin zuen, politika hori, hein handi batean, Phillipsen kurbak deskribaturiko inflazioaren eta langabeziaren arteko **arbitrajean** oinarritzen baitzen. Koro Navarro

Ostirala baino lehen **arbitrajezko** laudoa bete beharko dute langileek eta enpresak. Berria - Ekonomia

Lege dekretua onartu, auzia nazioarteko **arbitraje** baten esku utzi edo itunak eten eta herrialdetik alde egin dira multinazionalek izango dituzten aukerak. Berria - Mundua

Aldiz, "baldintzapeko **arbitrajera** " joko balute, bitartekariak oinarri gisa hartu beharko lituzke langileen zenbait eskari, baina enpresak erregulazio espedientea ezarri ahalko luke ontziola guztietan. Berria - Ekonomia

Grebalariek, aldiz, **arbitrajearen** aukera baztertu eta Lan Harremanetarako Kontseiluaren (LHK) bitartekaritza bilatzea onetsi zuten. Berria - Ekonomia

Gobernuak bete beharreko **arbitrajea** ezarriko zuela esan eta greban diren plataformetako langileek ostegunetik aurrera lanera itzuliko direla esan zuten. Berria - Ekonomia

Derrigorrezko **arbitrajea** agindu du Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Bilboko Ur Partzuergoko azpikontratetako langileak egiten ari diren greban. Berria - Ekonomia

Edwardsek helegitea jarri dio erabakiari, orain Kirol **Arbitraje** Epaimahaiari dagokio Edwardsek Olinpiar Jokoetan parte hartzerik duen erabakitzea. Berria - Kirola

Pferd-Ruggeberg Caballito enpresako zuzendaritzak **arbitraje** prozedura bat abiatu nahi du Gasteizko lantegian duela zazpi hilabete hasitako greba mugagabeari irtenbidea emateko. Berria - Ekonomia

Zuzendaritzari, hain zuzen ere, Langileen Batzordeak egindako bitartekaritza eta **arbitraje** eskaera helarazi zioten. Berria - Ekonomia

2 ***kontsumo-arbitraje*** *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Kontsumo-arbitrajea judizioz kanpoko prozedura da, kontsumitzaile eta enpresaburuen arteko gatazkak konpontzeko. ETC-entziklopedia

Atal horretan, kontsumitzerakoan sor daitezkeen gatazkak konpontzeko bideak ere ematen ditu ezagutzera erakusketak: eroslearen eta dendariaren arteko akordioa, erreklamazio orriak, **kontsumo arbitraje** sistema eta justizia auzitegiak dira aukerak. ETC-prentsa

Aire konpainiak ez daude **Kontsumo Arbitrajean** , bertan egotea borondatezkoa baita, eta paso egiten dute. ETC-prentsa

Artikulu honetan aurreikusiriko **kontsumo-arbitrajeaz** besteko arbitraje-hitzarmenak ezin lotuko dira kontsumitzaileekin behin kontratuko alderdien artean gatazka materiala edo eztabaida sortutakoan baino. ETC-zientzia, zuzenbidea

Artikulu honetan aurreikusiriko **kontsumo-arbitrajeaz** besteko arbitraje-hitzarmenik ezin lotuko da kontsumitzaileekin behin kontratuko alderdien artean gatazka materiala edo eztabaida sortutakoan baino. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alderantziz, oso hizkera samur eta soila erabiliko da, helburua baldin bada auziaren parteek ondorio argiak ateratzea beren jokabideari edo eskakizunei buruz; adibidez, **kontsumo-arbitraje** batean. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arbitrajea onartzen** (3)

---

arbitral *(corpusean ez dago; ETCn **120** agerraldi)* *izond* arbitrajeari dagokiona.

Hirigintza eta etxebizitza eremuan, Foru Aldundiaren eskumenak urratzen dituelako aurkeztu du helegitea EAEko Batzorde **Arbitralaren** aurrean. ETC-prentsa

Gaur erabakiko du Batzorde **Arbitralak** Arabako Foru Aldundiaren helegiteak aurrera egingo duen edo ez . ETC-prentsa

Euskal Autonomia Erkidegoko Batzorde **Arbitralak** atzera bota du Arabako Foru Aldundiak Lurzoruaren lege egitasmoaren kontra eginiko helegitea. ETC-prentsa

Abokatuaren esanetan jarrera horrek Xalaren defentsa eskubidea urratu du, eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren arabera "edozein auzibide judizial edo **arbitralean** " beti indarrean dagoena. ETC-prentsa

Haritzaldek prozesu judizial, administratibo, **arbitral** eta komunitarioak alde batera uzteko hitza eman du, eta oniritzia eman dio Hegoaldeko Zuhaitz Igelaren kudeaketa planari. ETC-prentsa

Batzorde **arbitralera** eramango du Arabako Aldundiak Jaurlaritzaren Ardoaren Legea . ETC-prentsa

Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak iragan martxoan baliogabetu egin zituen laudo **arbitral** horiek, baldin eta EBko estatukideen artekoak badira. ETC-prentsa

Exekutatu behar den titulua, laudo **arbitral** bat denean betearazpena berau eman den tokiko Lehen Auzialdiko Epaitegiari dagokio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Askotan herrialde latinamerikarren interesen kontrakoa kontsideratua izan den praktika **arbitral** honek arbitrajearen kontrako sentimendua indartu zuen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horixe izan daiteke arbitrajearen kasua, non alderdiek, kontratu edo klausula **arbitral** baten bidez, erabakitzen duten beren artean sortutako edo sor daitekeen arazoa hirugarren batek (arbitroak) konponduko duela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontratu batean jatorria duten etorkizuneko gatazketan, alderdiek klausula **arbitral** bat gehitu ahalko dute. ETC-entziklopedia

Horrela, prozesu judizial edo **arbitral** bat ekidin edo jada hasia den prozesuari amaiera emango diote. ETC-entziklopedia

---

arbitrarietate *iz* arbitrariotasuna.

Unibertsitateetan kritika irakatsi behar da, baina kritika egiteko modu horrek badu betiere muga bat gurutzatu ezin dena: **arbitrarietatea** . Pello Salaburu

Bai, adiskideak: legeek ez dute **arbitrarietatetik** babesten, legeak arbitrarioki interpretatzen baitira. Matías Múgica

Hau eskandalu bat da eta jakinen du prentsak kartzela honetan nolako **arbitrarietateak** egiten diren, lehenik Espainiako Abokatuen Kolegioa jarriko dut jakinaren gainean, eta hurrena Amnesty International. Koldo Izagirre

Agian, ereduen gabeziak **arbitrarietatearen** gatibu egiten zaitu, aldakortasunaren preso. Lander Garro

Konbentziook ohitura bihurtu direla, eta beren **arbitrarietatearen** kontzientzia galdu dela, eta bestelako mapak mesprezatu egin direla, primitiboak eta subjektiboak direlakoan. Joseba Sarrionandia

Legeak parez pare irekiko dizkio ateak **arbitrarietateari** , askatasun eremuak murriztuz. Berria - Euskal Herria

Lehendik ere uste genuen **arbitrarietate** izugarria dela, eta gaur entzun dugunak orain arteko iritzia berresten du. Berria - Euskal Herria

Batasunaren arabera, Konstituzionalak "zintzo-zintzo" bete ditu Aznarren aginduak, "eta Europa osoan aurrekaririk ez duen **arbitrarietate** judizialari amaiera ematen lagundu du". Berria - Euskal Herria

---

arbitrario *izond* apetaren araberakoa, norbaiten nahiari edo apetari dagokiona.

Izan ere, adierazlea "ziorik gabekoa da, hots, **arbitrarioa** , adieraziari buruz, honekin ez baitu errealitatean inongo uztardura berezkorik". Isabel Arrigain

Berez, "Havèr"=Kide hitzaren femeninozko forma **arbitrario** bat da. Juan Garzia

Errusiar herriaren ohiko izaera etsipen otzana zen, amerikar herriarena urduritasun zalapartatsua; eta izaera-desberdintasun hau gobernu **arbitrarioarekiko** zuten jarrera desberdinean islatzen zen. Iñaki Mendiguren

Lege **arbitrario** bat maitasunean edo gorrotoan berdin inspira daiteke. Iñaki Mendiguren

Baina Aita Hardouin-i bakarrik onartzen zaio gertaeren gainean halako ahalmen **arbitrarioa** erabiltzea. Iñaki Iñurrieta

"Sistemetan" ezaugarri generikoen kontzeptua seinale **arbitrarioa** da, nahiz eta ez den nahasgarria generoak izendatzeko orduan. Xabier Arregi

Espainiako Gobernuaren jokabidea "alegala eta **arbitrarioa**" dela uste du, "ez baita oinarritzen alde biko akordio batean edo araudi batean". Berria - Ekonomia

Panofskyk ez du adierazi nahi perspektiba konbentzio **arbitrario** bat denik, historiako aldi bakoitzak "bere" perspektiba izan duela baizik. Josu Zabaleta

Hizkuntza egoera jakin bat faktore historikoen emaitza da beti, eta faktore horiek dira, hain zuzen, zergatik den ikurra aldaezina argitzen dutenak, hau da, azaltzen dutenak ea zergatik ukatzen dituen ikurrak ordezkaketa **arbitrario** guztiak. Isabel Arrigain

Beraz, mintzaira, ikurrek irudikatzen dutenarekiko arbitrariotasunean funtsatzen den sistema bat da; hizkuntza, ikur **arbitrario** batzuen multzo antolatua. Isabel Arrigain

Bizi garen gizarte ekonomikoaren oker nagusiak dira guztientzako enplegua lortzeko gaitasunik eza eta errenta eta aberastasunaren banaketa **arbitrario** eta zentzugabea. Iñaki Heras

Nabarmentze eta balioeste **arbitrario** eta berariazko horrek are ageriagoan uzten du ertz horiek irudia markoz kanpokotik bereizteko balio dutela. Josu Zabaleta

Bi auziok zuzenbidearen ikuskera **arbitrario**, Erdi Aroko batean dute oinarria. Berria - Euskal Herria

Susmoa dut, hala ere, zure eromenaren objektua ni izatea eta ez beste bat, **arbitrario** samarra izan zela. planifikaziorik gabeko hautaketa **arbitrario** samarra egiten dudala, liburu-dendan ikusmiraka ibili eta gero hau edo beste hartuaz, ez normalki azken urteko nobedadeak baizik orain urte batzuetakoak eta ahazten hasita daudenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Hizkuntza desberdinek bi mailetako osagaiak izan ohi dituzte beti: erabat **arbitrarioak** diren osagaiak eta erlatiboki motibatuak direnak. Isabel Arrigain

Analogiaren izaera hori dela eta, bi oharpen egin ditzakegu, erabat **arbitrario** eta erlatiboki **arbitrarioari** buruz dugun ikuspegia baieztatzen dutenak. Isabel Arrigain

Edertasun edo itsustasun kontzeptua soziala da eta **arbitrarioa**. Ana Urkiza

Nahiz mendearen kontzeptua, esan bezala, **arbitrarioa** den, gezurra dirudi nola gureganatu dugun, zer-nolako garrantzia ematen diogun gure eguneroko bizitzan. Pello Salaburu

Epaileak usteetara jotzen duenean, epaiketak **arbitrario** bihurtzen dira; legeak usteetara jotzen duenean, lege finkoa ematen dio epaileari. Iñaki Iñurrieta

Askotan, gainera, aukeraketa **arbitrarioa** izaten da, gustuen arabera egiten delako. Berria - Kultura

Zaila da, baina, sailkapenerako irizpide formal bat aurkitzea, **arbitrarioa** eta *ad hoc* ez dena. Itziar Laka

Asko kostako litzateke haiengan Lukrezioren jainko ahalguztidun eta **arbitrarioak** aurkitzea. Xabier Amuriza

Irudikapena **arbitrarioa** da: irudikapenaren prozesuan bertan, alegia, beste gauza baten lekuan dagoenaren instituzioan, arbitrariotasun parte handi bat dago, sozializatuta dauden konbentzioak izatean oinarritua. Josu Zabaleta

Ikerlariek honako puntuak aztertu nahi dituzte: presoen osasun fisiko eta psikikoaren egoera, atxiloketa **arbitrarioak**, epaileen independentzia eta tortura zantzuak. Berria - Mundua

Bizi-baldintza gorriak eta zigor guztiz **arbitrarioak** ezartzen dira kartzeletan espetxeratuaren egoera gaiztotze muturrera eramateko. Berria - Euskal Herria

Ez dakit zergatik dauden hain modu **arbitrarioan** ordenaturik. Juan Garzia

Gertaera baten denbora, denbora horretako une baten bitartez nahiko modu **arbitrarioan** itzultzera behartu gabe irudikatzeko aukera ematen zuelako. Josu Zabaleta

Dialektoak, hizkuntzaren eremuaren zatiketa **arbitrarioak** baizik ez dira; orobat, bi hizkuntza bereizten dituen muga ere konbentzionala izan daiteke soil-soilik. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arbitrarioa da (14); **arbitrarioa dela** (6); **arbitrarioa den** (4); **arbitrarioa dena** (5); **arbitrarioa denez** (3); **arbitrarioa izan** (7); **da arbitrarioa** (4); **erabat arbitrarioa** (9); **erlatiboki arbitrarioa** (3); **guztiz arbitrarioa** (5); **ikur linguistikoa arbitrarioa** (3)

arbitrarioak dira (4); **arbitrarioak diren** (4); **arbitrarioak izango** (3); **erabat arbitrarioak** (4)

modu arbitrarioan (5)

---

arbitrarioki *adlag* era arbitrarioan.

Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak hasieratik **arbitrarioki** jokatu zuen, eta mendekuan eta gorrotoan oinarritutako atxiloketa bat egin zuten. Berria - Euskal Herria

Legeek ez dute arbitrarietatetik babesten, legeak **arbitrarioki** interpretatzen baitira. Matías Múgica

Hizkera berezi hartan, haatik, hitzon eremu semantikoa **arbitrarioki** itxuraldatzeko edo zabaltzeko joera nabari zen. Juan Garzia

Arbitrarioki zatitzen dugu denbora, horrela hitz egin badaiteke segurik, baina behin erabakia hartuz gero, horri eusten diogu gure indar guztiekin: uda eta negua bereizteko orduan, erlojua atzeratu edo aurreratu behar izaten dugu. Pello Salaburu

Pertsona hauek **arbitrarioki** atxilotuta daude eta, beraz, askatu edo auzitegi independenteetan auzipetu eta zigortu behar dituzte. Berria - Harian

Doktrina konstituzionalak dio askatasun sindikalerako eskubidearen barruan aitortzen dela Administrazioak sindikaturen bat **arbitrarioki** ez diskriminatzeko eskubidea. Berria - Ekonomia

Nahiz eta, erresumaren legearen arabera, feudoak aldagarriak izan, ez ziren ematen edo kentzen apeta hutsez eta **arbitrarioki**; horixe izaten zen nazioaren batzarretan tratatu ohi ziren gauza nagusietako bat. Iñaki Iñurrieta

Autoritatea ere bada, aginte-iturri nagusia, haurraren gain misterioski zertua eta bulkada batzuk **arbitrarioki** zapaltzen dituena, hauen bideetatik bizitza berria kanporantz irteten delarik. Iñaki Mendiguren

---

arbitrariotasun *iz* arbitrarioa denaren nolakotasuna; aritzeko era arbitrarioa.

Bidegabekeria eta **arbitrariotasuna** ez direla eten gogoratzeko balio dute bi kasu hauek. Berria - Euskal Herria

Halabeharra ez da **arbitrariotasuna**. Anjel Lertxundi

Nolatan ez aurkitu **arbitrariotasuna**, are fantasia hutsa, gure munduan eta haren funtzionamenduan? Juan Garzia

Soilik ikurretako batzuk dira erabat arbitarioak; beste ikur batzuetan, fenomeno batek hartzen du esku, fenomeno horri esker, **arbitrariotasunean** maila desberdinak atzeman daitezkeelarik, **arbitrariotasuna** ezabatu gabe: ikurra erlatiboki motibatua izan daiteke. Isabel Arrigain

Saussurek esaten du ikurraren **arbitrariotasuna** lehen hatsapena dela, ondoan, garrantzi bereko beste lege bat duena: adierazlearen linealtasunarena, alegia. Isabel Arrigain

Beharrezkoa da ikurraren **arbitrariotasuna**, hizkuntzek adierazpidetzat jokatu ahal izateko beharrrezko zaien egonkortasunari euts diezaioten. Isabel Arrigain

Hizkuntzaren fonologiaren aldetik horren nabarmen diren inkoherentziek lekua dute ortografian, konbentzionala izanik **arbitrariotasunak** leku handiagoa har dezakeelako ahoskeran baino. Lourdes Oñederra

Aldaketa fonetikoen tasun hau, sinbolo fonetikoaren **arbitrariotasunaren** menpekoa da, hau da, esanahiarekin inolako loturarik ez duen ikur horren menpekoa. Isabel Arrigain

Despota baten gisa gobernatzen zuen etxea, Andres bere onetatik ateratzen zuen erretxinkeria eta abandonuzko, despotismo eta **arbitrariotasunezko** nahaste batez. Josu Zabaleta

Gero hitz egiten jarraitu genuen: enkarguez, huskeriez, funtzionarioen **arbitrariotasunaz**. Iban Zaldua

Halatan, **arbitrariotasun** erabatekoaren aurrean jarri gintuen Oteizak: [...]. Anjel Lertxundi

Horren ondorioa **"arbitrariotasun** juridikoa" da, Iruinen aburuz.. Berria - Harian

Irudikapena arbitrarioa da: irudikapenaren prozesuan bertan, alegia, beste gauza baten lekuan dagoenaren instituzioan, **arbitrariotasun** parte handi bat dago, sozializatuta dauden konbentzioak izatean oinarritua. Josu Zabaleta

Zenbat eta hobeagoa izan administrazioa, orduan eta gehiago kentzen du giza **arbitrariotasuna**. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ikurraren arbitrariotasuna (7)

ikurraren arbitrariotasunaren (4)

---

arbitratu, arbitra(tu), arbitratzen du *ad* futbolean eta, arbitro lana egin.

Poltsikoan izango zituzkeen hiru puntuak Fernandez Borbalan epaileak behar bezala **arbitratu** izan balu, baina, aurrekoetan ez bezala, taldeak ez zuen asmatu atzean eta erdian sendo jokatzen; Liga hasierako ajeekin zelairatu zen. Berria - Kirola

---

arbitratze *iz* gatazkak eta bideratzeko prozedura, alde guztiek onartzen duten bitartekari baten erabakian funtsatzen dena.

Ez badira ados jartzen, **arbitratzea** hasiko da. Berria - Harian

Arbitratzea loteslea izango da. Berria - Harian

Arbitratzea: Erregulazioan ados ez badira jartzen, bi aldeek epaile bana izendatuko dute. Berria - Harian

Lan Sailak bitartekaritza eta **arbitratze** baldintzak jakinarazi beharko dizkie bi aldeei, eta prozesuko hurrengo urratsak finkatu. Berria - Ekonomia

Derrigorrezko **arbitratzea** inposatu diete Norvegiako petrolioko langileei. Berria - Ekonomia

Kirol **Arbitratze** Epaitegiak ez dio urrezko domina kendu Hammi. Berria - Kirola

Jo Planckaert txirrindulari belgikarrak helegitea aurkeztu du Lausanako Kirol **Arbitratze** Auzitegian, Belgikako Federazioak hilabete hasieran ezarri zion bi urteko zigorraren aurka. Berria - Kirola

Kirol **Arbitratze** Auzitegiak (TAS) atzo iragarri zuen Nazioarteko Futbol Federazioak (FIFA) ez duela betetzen Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak (WADA) egindako araudia. Berria - Kirola

Emaitzetan aise gailendu zen **arbitratzearen** aukera. Berria - Ekonomia

Atzo arratsaldean lantokian eginiko batzarrean, bi aukeraren artean erabaki behar zuten langileek: Eusko Jaurlaritzako bitartekaritza eta **arbitratzea** bilatzea edo UGTk proposatutako konponbidea onartzea. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
kirol arbitratze epaitegiak (4); **kirol arbitratze epaitegian** (3); **lausanako kirol arbitratze** (3)

---

arbitrio **1** *iz* zerbait epaitzeko edo erabakitzeko ahalmena edo gaitasuna.

Legea bi zentzu horietatik zeinetan ulertu behar den, subiranoaren **arbitrioaren** pean dago. Esteban Antxustegi

Obedientzia aktibo eta pasiboaren arteko bereizketa, alferrikakoa da, giza **arbitrioak** ezarritako zigorren bidez posible izango balitz bezala Jainkoaren legea den lege naturalaren aurkako bekatua kitatzea Esteban Antxustegi

2 gastu publikoetarako zerga.

Nolanahi ere kristau elkarte ugari izan dira, bere ofizioaren itzalak erakarrita, Mateo santu langilearen zaindaritza eskatu dutenak: [...] aduanariek, muga-zergak eta **arbitrioak** kobratzen zituztenek aurrena, diru-trukatzaileek gero, eta kontulari eta kontableek hurrena, eta azkenik, bankariak bildu dira Mateoren itzal zabalera:eta ongi doakie, dirudienez: dirudun direnez, alegia. Pello Zabala

---

arbitro **1** *iz* kirol lehiaketetan, arauak betearazten dituen pertsona. ik **ebazle**; **epaile**; **jokozain**; **juje**.

Arbitroak sasi penalti bat pitatu duenean jaiki eta kanpora joan dira; espainolez dakien bati galdetu diot zergatik eta esan dit ba injustizia izan dela eta holandarren taberna bat bilatu behar dutela Bordelen eta ea eurekin joan nahi dudan. Edorta Jimenez

Arbitroa maiz entzuten genuen txistuka. Daniel Landart

Sekulako gola sartu zian -Boca Juniorsen kontra, oker ez banago-, zelaia alderik alde zeharkatu, eta bidera irten zitzaizkiòn aurkari guztiak hankaz gora utzi ondoren, atezaina bera ere bai... baita **arbitroa** eta marrazainak ere, hortik atera kontuak! Joan Mari Irigoien

Penaltia adierazi zuen **arbitroak**, baita jokalariari txartel gorria erakutsi ere. Berria - Kirola

2 *iz* arbitraje batean epaile lanak egiten dituen pertsona.

Pferd-Ruggeberg Caballitok 23 langile gehiago kaleratzeko eskubidea duela berretsi dute auzia bigarren aldiz aztertu duten **arbitroek**. Berria - Ekonomia

Horregatik, **arbitroak** jartzen direnean horma mehelinak tasatzeko, haiek ez dituzte paretak beren garaian izandako kostuaren arabera baloratzen, baizik eta kontuetatik kontratuak ateratzen dituzte. Santiago Iruretagoiena

Halaber, bazekiten, Britainiar Inperioaren mendean, berriro ere atzera utzi zituztela hinduek bi komunitate haien arteko gatazka etengabearen fase batean, non britainiar **arbitroak** agindua baitzuen luma izatea ezpataren ordezko, lehia zuzentzeko tresna gisa. Iñaki Mendiguren

3 irud/hed

Honek Chiraci « **arbitro** bezala, ez alde baten alde jokatzeko» eskatu zion Chiraci. Berria - Mundua

Arbitroa erosteko modua aurkitu beharko zenuke! Joan Mari Irigoien

Beste behin, Jonathan eta biok haserretu ginen eta Lucillak parte hartu behar izan zuen **arbitro** gisa ia astebete generamatzanean elkarri ezer esan gabe. Berria - Kultura

4 ***arbitro epaile*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Geure bizitzako alor askotan ere, ez ote gara guztiok **arbitro epaile**, arbitro izaten ausartzen ez garelako? ETC-prentsa

5 ***futbol arbitro*** *(corpusean ez dago; ETCn **72** agerraldi)*

Futbol arbitroen modukoak dira, bere kasuan, egindako akatsen ondorioak hilgarriak diren arren. ETC-prentsa

Hain zuen, batetik, Gipuzkoako Futbol Federazioaren eta Gipuzkoako **Futbol Arbitroen** Batzordearen parte-hartze aktiboa egon zen, beharrezko informazioa eskainiz eta klubekin kontaktatzeko bideak erraztuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eduardo Jesús Iturralde González (Bilbo, 1967ko otsailaren 20a) euskal herritar **futbol arbitro** ohia da. ETC-entziklopedia

---

arbizuar *izond/iz* Nafarroako Arbizuko biztanlea.

Nahiz entzulerik ez asko toki hartan saio emankorra izan da bortz bertsulari sailkatzen baitziren handik finalerdietarat eta heietan Josema LEITZA **Arbizuarra** lehen, Oskar ESTANGA bigarren. Herria

Ez gara 1960ko urte haietan bizi, zeinetan Kordobako etorkinek tomatea gordinik jaten zuten, eta azpeitiarrek edo **arbizuarrek** ez. Ondoan zuen Juan Miel Arzelus 51 urteko **arbizuarra** ere ezkor mintzatu zen. Bernardo Atxaga

Arbizuarrak txapelketetan segitzeko asmoa du. Berria - Kirola

---

arbola *(orobat **arbol**)* **1** *iz* zuhaitza.

Lurra lehorra zen; **arbolarik** ez zegoen, klima gogorra zen, jendeak ere gogorra behar. Josu Zabaleta

Juduaren jakituria geroz eta hobeto ulertzen da, puntu hau azpimarratu ahala: alde batean jakintzaren **arbola**, bestean bizitzaren **arbola**. Josu Zabaleta

Bizitzaren **arbola** guztiz handia, hostotsua zen, eta, Elizako aita batzuek diotenez, hilezkortasuna ematen zuen. Josu Zabaleta

Zuk lehen aipatu dituzun Bibliako bi **arbola** horiek topatu zituen, eta jakintzaren **arbola** itomenean zeukaten bizitzaren **arbolaren** adarrak bakanduz joan zen. Josu Zabaleta

Arbol batean ezarri dituzte kartoinezko bihotz forma batzu, salduak zituztenak etxetan eta beraz **arbol** sinboloa bete betea zuten bihotz horietaz. Herria

Baina heziketa ez dago naturan: heziketak kalte egiten die naturaren ondorioei, laborantzak **arbolei** bezalaxe. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Etxearen gainaldean, **arbolek** osatutako esparrua zegoen egurrezko mahaiekin, itzalean. Iñaki Iñurrieta

Paisaia ezezaguna egiten zaio, ez du **arbolek** xuxurlatzen dioten mezua ulertzen. Karlos Linazasoro

Zumarrak nagusi ziren ezker-eskuineko **arbolen** artean. Anjel Lertxundi

Basoa da **arbolen** elkartea, eta basoak erabakiko du bere kideen ibilbidea, hauen haziak mugitu egingo baitira, iparraldean edo hegoaldean kimu berriak sortuz, eta hauen haziak era berean urrunxeago bideratuz. Pako Aristi

Gune batean gelditu naiz bidearen eskualde bakoitzeko **arbolen** abarrek, ukurtuz, elkar besarkatzen dute, tunela natural eta argitu bat moldatzen dutela. Piarres Aintziart

Airearen presioa aditu nuen soroak gurutzatzen, haizeak putz eta txistu egiten zuen **arbolen** adaxka biluzietan eta sasietan. Fernando Rey

Egur bila hasi zen, eroritako **arbolen** adarrik meheenak ebaki nahian. Pako Aristi

Ongi gogoan dudan hiri handi hartan, aldirietako kaleek argi hitseko farolak zituzten, gero eta argi hitsagoko farolak, landan galtzen zirenak **arbolen** arteko iluntasunean. Fernando Rey

Domeka; ospitale aurrean ematen dut eguna, parkeko **arbolen** atzean ezkutaturik. Eskarne Mujika

Bizitzan zehar ikusitako **arbolen** memoria dugulako dakigu orain lehendabizikoz ikusitako hori arbola bat dela eta ez beste zernahi, errealitateak oroimenaren baitan hartzen baitu ostatu. Anjel Lertxundi

Arboletan zintzilik jarriak zeuden erbi larrutuak eta oilo lumatuak, eltzeetan sartzeko zain-zain. Patxi Ezkiaga

Arboletako fruituak eta soroetako uztak ugalaraziko ditut, beste nazioen aurrean gosearen lotsa jasan beharrik izan ez dezazuen. Elizen arteko biblia

Kobazulo bat hartu zuen babeslekutzat, ur garbiko errekak aurkitu zituen, **arboletako** fruituez elikatzen hasi zen eta basoko piztiei aurre egiten ikasi zuen. Jon Arretxe

-Zer, baratzeko **arboletatik** ez jateko esan dizue Jainkoak, ezta? Jose Antonio Mujika

Italian umeak bihurrikeriak egin nahi dituztenean **arboletara** igotzen dira. Harkaitz Cano

Benta ere sarraskitua izan zen, baina bordak mirakuluz iraun zuen, zuhaitz eta **arbolez** gerizatu txara batean aurkitzen baitzen. Elena Touyarou

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gorputz hil baten hezurrak garbitzen dituen hienak, euli bati barrena zurrupatzen dion armiarmak, ez du besterik egiten **arbola** zintzoak lurrari bere bizitzarako beharrezkoak dituen ura eta gatzak kenduz egiten duena baino. Josu Zabaleta

Hango jauregi ederraren gibeleko aldean, iduzkiari buruz, bainan Uhaitza ibaiatik ez urrun, **arbol** handi batzuen itzalpean, beraz ditakeen toki egokienean. Herria

Bi egun pasatu ditugu hiri hortan, parke nasai eta **arbol** ederren artean. Herria

Harako bidean, **arbol** biluziak alde bietara, joan zihoazen emakume biri so gelditu zen; haiek arrunt txikituta zeudela: [...]. Pablo Sastre

665. urtean, 666aren bezperan (zenbakien egokiera gustatzen zaienentzat diot), bost **arbol** sakratuok ipurditik bota eta erre zituen sasoi hartan iritsi zen erlijio berriak, Erromakoak noski. Pello Zabala

Nere guztizko **arboletakoa** duzu lizarra. Patziku Perurena

3 (hitz elkartuetan)

Ibar luze-zabalak dirudite, ibai ondoko baratzeak, Jaunak ur-ertzean landaturiko aloe edo zedro **arbolen** antzeko dira. Elizen arteko biblia

Beste tankera bateko bidaia eskaintzen dio irakurleari, batzutan haize gainean basoko **arbol**-gailurretan barrena. Anton Garikano

Aspaldian hil eta menturaz **arbol** erroetan traukatu zerri zein bildots hilkiak baziren, plastikozko ontziak eta etxeetan beharrezkoak ez ziren mila gauza zaharkitu. Itxaro Borda

Euskal-Herriko oihanetan aurkitzen diren **arbol** edo zuhaitz moten erabilpenaz, entzunen dugu Jakobe Errekondo. Herria

Mandoa arte-**arbola** handi baten azpian sartzean, arte-adarretan gatibatu zitzaion Absalomi ilea; Hiri gotortu eta hiri nagusi guztiak xehatuko dituzue, fruta-**arbolak** ebakiko, iturburu guztiak itxiko eta lur landuak hondatuko harriz betez. Elizen arteko biblia

Lagun honek beti bere aitaren txeke asko izaten zituen sakelan, fruta-**arbolen** lursailen jabea baitzuen aita. Fernando Rey

Han berean bi hektareko baratze haundi bat moldatuz, hemendik ereman haziekin (tomate, entselada, tipul, aza eta bertze), eta ere hogoi bat fruitu **arbol** landatuz. Herria

Gero, behin Molly bere etxera joana zelarik, Charlie eta biok fruitu-**arbolen** baratzean eseri ginen, isil-isilik. Mirentxu Larrañaga

Bere buruari gogor eginda ere, platano-**arbolek** behin eta berriro hartzen zieten aurrea umeei, eta oroimenari ezin zion hori barkatu. Anton Garikano

Sagar-**arboletako** batean, uda hasieraz geroztik, sagar-aleak aurkitzen genituen; zeinak, zeharo helduak egon ez arren, eztia bezain gozoak ziren. Eskarne Mujika

Lokatzean erdi-lurperatutako harriak, muskerrak mango-**arbolen** enborretan gora, bizpahiru liztor burrunbaka, eta, hala eta guztiz ere, isiltasuna, min ematerainoko isiltasuna. Karlos Zabala

4 ***arabi sagar arbola*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Landare hotz-urruti eta epelzale hauen artean nabarmena da zitrikoen koadrila: limoiondoa (Citrus limon), laranjondoa (Citrus sinensis), mandarinondoa (Citrus nobilis) eta **Arabi sagar arbola** (Citrus paradisi). ETC-prentsa

5 ***arbola-ipurdi***

Apustu egingo dizut nirea baietz bota **arbola-ipurdi** hura baino urrutirago. Iñaki Mendiguren

Lepic jauna, anaia nagusi Felix, arreba Ernestina eta Axenario gaubeilan daude, tximiniaren inguruan, lau aulkiak aurreko hanken gainean kulunka; sutan, **arbola-ipurdi** bat, zain eta guzti. Itziar Otegi

Gajoak igual uste du **arbola-ipurdian** eserita txirula jotzen aritzen ziren artzain haietatik gatozela gu... Andoni Egaña

6 ***fruitu-arbola***

Lurrean eseri ziren, zenbait **fruitu arbola** landatuak zituen lur zoko hartan. Karlos Zabala

Landare bikainak edo **fruitu arbolazko** erregimentuak. Josu Zabaleta

Gero, lehen ura zegoen tokietan **fruitu** arbolak sartu zituzten. Felipe Juaristi

7 ***fruta-arbola*** *(orobat **frutarbola**)*

Bidetxo asfaltatu eder, **fruta arbolaz** inguratu batetik abiatu ginen harantz. Josu Zabaleta

Lore arroseko **fruta-arbola**. Anton Garikano

Zientzilari adituek diotenez edozein arbolatan sor omen liteke mihura, baina, **frutarboletan** batez ere. Patziku Perurena

Alorretan, sagarrondoak eta bestelako **fruta-arbolak** ikusten ziren hor-hemenka. Jose Morales

Fruta-arbolak ez diren zuhaitzak bota ditzakezue. Elizen arteko biblia

8 ***gaztaina-arbola*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arazoa asko arintzen du ondo-ren ordez arbola erabiltzen badugu, Euskal Herriko eskualde askotan ohitura izan den bezala, adibidez, sagar-arbola, **gaztaina-arbola** ... ETC-prentsa

Burutik oinetaraino belus eta larru gorriz apainduriko zalduna bide bazterrean dago jarria, **gaztaina arbola** baten gerizpean, kapa beltzaren gainean. ETC-literatura, saiakera

Gaztainondoa, gaztaina edo **gaztaina arbola** ("Castanea sativa") Fagaceae familiako zuhaitz bat da. Jatorriz Hego-ekialdeko Europakoa eta Asia Txikikoa da. ETC-

entziklopedia

9 *granada-arbola*

Orain noizean behin haize kirriak **granada-arbolaren** adarrak astintzen zituen. Juan Garzia

10 *hurritz-arbola* hurritza.

Behin parkera iritsitakoan, **hurritz arbola** batzuen azpiko eserlekuan jartzen nintzen. Hasier Etxeberria

11 *intxaur-arbola* intxaurrondoa.

Beldur handiz **intxaur-arbolaren** puntaraino igo zen intxaurrak botatzera. Askoren artean

Apaiza balitz, oraintxe bertan labana sartu, eta, hesteak aterata, lepoaren jiran jarri, eta hor kanpoko **intxaur-arbolatik** jarriko nikek zintzilik! Inazio Mujika Iraola

12 *Judasen arbola*

Eguna argitu eta bildu ziren denak **Judasen arbola** sail batean. Anton Garikano

13 *kakao-arbola* *(corpusean ez dago; ETCn **84** agerraldi)*

Kakao arbola edo **kakao-arbola** ("Theobroma cacao") zuhaitz txiki bat da (4,8 m), "Sterculiaceae" (edo "Malvaceae") familiakoa, Amerika Ameriketako eskualde tropikalekoa. ETC-entziklopedia

Kakao arbolak zainketa berezia behar du urte osoan, baina makina apartekorik ez da erabiltzen, bai ordea laneskua. ETC-prentsa

Amerikara joan omen zen XVII. mendean aberastasunen bila, eta **kakao arbolaren** haziak ezagutu zituen, Mexikoko indigenen eskutik. ETC-prentsa

Kafea sutan erre eta kakao-sailak masiboki suntsitzea, **kakao-arbolak** ipurditik atereaz. ETC-prentsa

Milioika **kakao-arbola** ipurditik atera izanari esker, 2010ean txokolatearen prezioa altxatuko dute. ETC-prentsa

Lehendabiziko **kakao arbolak** (Theobroma cacao) era naturalean hazten ziren Amazonas arroko oihan tropikalen babesean. ETC-prentsa

Erosi zuen lur puskak jadanik bazeramatzan bi hektarea eta erdi **kakao arbola**. ETC-prentsa

14 *kaki-arbola* kakiondoa.

-Kaki arbola bat gogorarazten dit. Iñaki Iñurrieta

15 *kautxu-arbola* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Zuhaiztiak ehunka akre hartzen zituen, etxaldeko lur hoberenetakoak, eta bi urte lehenago **kautxu-arbola** gazteak sartu zituen han Dickek. ETC-literatura, saiakera

Zerua garbi baina distirarik gabe zegoen kale ertzetako **kautxu-arbolen** gainean. ETC-literatura, saiakera

Oker kalkulatu zuten ere milioi eta erdi **kautxu arbola** landatzeko modua. ETC-prentsa

Bu Elvi anderea, esaterako, familiako **kautxu arbol** basoa erretzen aurkitu du Sintang eskualdean. ETC-prentsa

Klase guztietako mozkinen produkzio, transformazio eta salmentan sartu dira: oliotarako palmondoak eta **kautxu-arbolak** Asia Ekialdean, soja eta koltza ekoizteko etxaldeak Errusian, esne eta haragitarako behitegiak Zeelanda Berrian eta Australian, alpapatan berezitutako lurrak AEBetan eta Bulgarian... ETC-prentsa

Peruko oihanek lurraldearen erdia baino gehiago hartzen dute, baina ustiapena ez dago guztiz aurreratua: **kautxu-arbola**, kaoba, ebanoa, zedroa, palisandroa. ETC-entziklopedia

16 *laranja-arbola* laranjondoa.

Atarian oso ale ederrak ematen zituen **laranja arbola** bat zeukan. Patxi Zubizarreta

Dagoeneko ageri ziren zabaldiak arroz-soroekin eta **laranja-arbolekin**, barraka zuriak estalki beltzarekin. Josu Zabaleta

17 *laranja mingots arbola* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Kasu horietan arbola-ren erabilerak konpontzen du arazoa, adibidez **laranja mingots arbola** eginez. ETC-prentsa

Ikerketa genetikoen arabera, bergamotondoa limondo eta **laranja mingots arbolaren** arteko hibridoa da. ETC-entziklopedia

18 *limoi-arbola* limoiondoa.

Lorategian ezpelak, erramuak, **limoi arbola**. Pablo Sastre

Herrialde beroak ikusi nahi nituen, non fama baita olibondoak eta **limoi-arbolak** hazten direla. Juan Garzia

19 *magnolia-arbola*

Begiratu diezu lorea aspaldi galdutako sei **magnolia arbola** itzelei, eta irudikatu dituzu zein eder egongo diren datorren urtean, martxoko eguzkia epeltzen hasten denean. Hasier Etxeberria

20 *mango-arbola*

Muskerrek burua altxatzen zuten **mango-arbolen** enborretan. Karlos Zabala

Lokatzean erdi-lurperatutako harriak, muskerrak **mango-arbolen** enborretan gora. Karlos Zabala

21 *masusta-arbola* masustondoa.

Toki honetan, **masusta arbolak** eta basa mahastiak erauzi eta Medalliongo golf munizipala egin duten honetan, lehenago, auzo bat zegoen. Pablo Sastre

22 *mizpira-arbola*

Han bada **mizpira arbola** bat, eta handik kea ateratzen zelarik, laminek egiten zuten sua zen omen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

23 *ogi-arbola* *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **ogi(-)zuhaitza** agertzen da*

Sudurzuloak zabal-zabal zeuzkan su bakartiaren ondoan kiskaltzen ari zen **ogi-arbolaren** fruituaren usaina hartzeko. Lopez de Arana

Kolonia britainiarretako esklaboentzako **ogi-arbola** bila bidali zuten Christian Ozeano Pazifikora. Berria - Gaiak

24 *platano-arbola* *(orobat **platano-zuhaitz**)* platanondoa.

Mutilak urkaturik munduko **platano-arbola** ederrenetan. Anton Garikano

Laugarren etxean **platano-arbola** baten ernamuinak zeuden erorita teilatu gainera eta belardi itxura emana zion atariari. Anton Garikano

Gainerakoak parkeko banku ilunenera joan ziren: **platano-zuhaitz** pare bat zegoen albo banatan, eta haren aurreko farolak ez zuen argirik egiten. Fernando Morillo

25 *sagar-arbola* sagarrondoa.

Baratze koxkor bat eta **sagar arbola** batzuk zituzten etxe inguruan. Joxerra Garzia

Hara non bost urteko neska-koskorrak erantzuten dion, biak **sagar-arbola** baten azpiyen zeudela. Iñaki Segurola

Etxe ondoko **sagar arbolei** mihura kentzen. Patziku Perurena

Sagar-arboletako batean, uda hasieraz geroztik, sagar-aleak aurkitzen genituen. Eskarne Mujika

26 *tortotx-arbola* artelatza.

Loak hartuta gelditu zen Santxo **tortotx-arbola** baten oinean. Patxi Ezkiaga

Maiz egiten zion bisita bigarren zahagiari, ardoa freskatzen **tortotx-arbolatik** zintzilik jarria zeukatenari. Patxi Ezkiaga

27 *tulipa-arbola* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Tulipa-arbola eta lizarren kasko altuak plegatzen segitzen nituen haize hotzarekin. ETC-literatura, saiakera

Idi-bihotz arbola edo **tulipa-arbola** ("Liriodendron tulipifera) " Magnoliaceae familiako zuhaitza da eta Ipar Amerikako ekialdean du jatorria. ETC-entziklopedia

28 *udare-arbola* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* udareondoa.

Arbolari ere era askotara deitzen zaio: madarioondoa, madari-makatza, madari latza, madaritza, madaritze, udalondoa, udareondoa, udaretze, **udare-arbola**, txintila makatza... ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arbola adarretan (3); **arbola artean** (7); **arbola asko** (5); **arbola bat** (21); **arbola batek** (5); **arbola baten azpian** (4); **arbola batetik** (4); **arbola bati** (4); **arbola batzu** (4); **arbola batzuen** (3); **arbola batzuk** (3); **arbola bera** (4); **arbola edo** (5); **arbola gainean** (4); **arbola guztiak** (3); **arbola hori** (4); **arbola horiek** (9); **arbola horren** (4); **arbola moztu** (4); **arbola petalo galtzailea** (3); **arbola sakratua** (3); **arbola ttipi** (3); **arbola txiki bat** (3); **arbola zaharra** (4); **arte arbola** (4); **baina arbola** (3); **baratzeko arbola** (3); **bi arbola** (6); **bizitzaren arbola** (5); **da arbola** (3); **da gernikako arbola** (3); **den arbola** (3); **dituen arbola** (3); **du arbola** (3); **duen arbola** (5); **edo arbola** (6); **fruitu arbola** (7); **fruta arbola** (6); **gernikako arbola da** (5); **gure arbola** (3); **jakintzaren arbola** (14); **kamelia arbola petalo** (4); **landare eta arbola** (3); **sagar arbola** (3); **zuen arbola** (4)

arbolak ere (3); **inguruko arbolak** (3)

arbolako fruitua jan (3); **galarazi nizun arbolako** (3); **nizun arbolako fruitua** (3)

arbolaren adarrak (4); **arbolaren baten** (3); **arbolaren kontra** (3); **gernikako arbolaren aurrean** (3)

arbolatik jan (3); **gernikako arbolatik** (5)

arbolen baratzearen hondoan (3); **arbolen gainean** (3); **fruitu arbolen baratzean** (4); **fruitu arbolen baratzearen** (4); **fruta arbolen** (6)

---

arboladi

1 *iz* zuhaiztia, zuhaitzak dauden tokia. ik **zuhaizti**; **baso**[1].

Arboladi hori, trinkoa izanik ere, errepide publikotik oso gertu dago. Koro Navarro

Patioa parke antzeko **arboladi** batez inguratua genuen. Javi Cillero

Aldian behin bide ertzean edo **arboladi** txikien abaroan ikusten diren etxeengatik ez balitz, bidaiari arrotzak pentsatuko luke landotan ez dela inor bizi. Anjel Lertxundi

Eta lehorreko landa eta **arboladiak** laku grisez eta padurez gainezka daude, eta kalatxoriak dabiltza hara eta hona zeru grisean. Joseba Sarrionandia

Aurrera egin baino lehen, pentsa dezagun nolakoa izan zitekeen hilketaren gertalekua, Barrière du Roule-ko **arboladian**. Koro Navarro

Basoan, garoaren aztarrena galduta, bidezidor bati jarraitu genion **arboladian** barrena puska batean. Inazio Mujika Iraola

Esploratu gabeko leku bat, eta baita gutxitan bisitatzen den leku bat ere, ez dago aurkitzerik Parisen inguruko baso edo **arboladietan**. Koro Navarro

Egunkariek **arboladiko** aurkikuntzari harrera beroa egin bazioten ere, eta aho batez suposatu zen arren huraxe zela erasoaren gertalekua, onartu beharra dago badela arrazoirik duda egiteko. Koro Navarro

Leku eder baten gertatu da, ibilbidearen erdi inguruan, **arboladiz** inguratutako ibai izoztu baten bazterrera iritsi naizenean. Bi mutil kozkor, Madame Deluc baten semeak, Barrière du Rouletik gertuko basoan jolasean zebiltzala, **arboladi** sarri batean sartu ziren ustekabean; ba omen dira han hiru edo lau harri handi, eserleku moduko bat osatzen dutenak, beren atzealde eta aulkitxoarekin. Jon Arretxe

Barrière du Roule-ko **arboladi** bakartietan. Koro Navarro

2 ***arboladi sakratu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Antzinako Grezia baino lehen, temenos-a eremu ofizial bati zegokion lur zati bat zen, batez ere, errege ("basileos"), eta buruzagi ("erithacus") bati zegokiona edo baita jainko, santutegi, eremu sakratu edo **arboladi sakratu** bati eskainitakoa. ETC-entziklopedia

---

arbolagabe

izond arbolarik ez duena.

Elurra ari zuen erdiko lautada iluneko alde guztietan, muino **arbolagabeetan**, elurra, emaro, Allengo zingiran, eta sartalderago, emaro, elurra, Shannonen uhin mutiri ilunen gainean. Irene Aldasoro

---

arbolaño

iz adkor arbolatxoa.

Aita Saindua izan da ere Golan-eko mendixketan eta **arbolaño** bat landatu du, bakearen seinale, duela hogoita-zenbait urte gerlaren gatik dena xehatua izana den Kuneitra herrian. Herria

Joanden egunean, Miarritzen, funditu dituzte karrika bazter baten apaintzeko landatu berriak ziren **arbolaño** batzu, zonbait xehatu eta besteak errotik ateratu...! Herria

---

arbolape

iz zuhaizpea.

Zaldiak eta behorrak **arbolapeetan** gorderik, behiak belar gainean etzanik, soilik ardiek jarraitzen zuten bazkan, ezer gertatuko ez balitz bezala. Hasier Etxeberria

---

arbolatsu

izond arbola asko duena, arbola asko dagoena.

Barojako eremu berde eta **arbolatsua** arras egokia da udan lanean ari diren burrasoen haurrentzat. Herria

---

arbolatxo

iz adkor tamaina txikiko arbola.

Sagar haiek biltzerakoan -Faedistarrenean mutilak ziren haien jabe lau edo bost **arbolatxo** besterik ez baitziren zimaurtegi ostean-, Cecilia etxean zen oraindik. Josu Zabaleta

Bertan parke bat egin zuten, eta han baziren lore-sailak eta **arbolatxoak**, jendeak atseden hartzeko bankuak, eta haurrentzako gune berezi bat. Eskarne Mujika

Arbolatxoaren kimu batzuetan sagarrak atera ziren batzuetan, beste batzuetan melokotoiak eta, bakan batzuetan, gereziak eta baita aranak ere. Berria - Kultura

---

arbolaxka

iz arbolatxoa.

Arbolaxka artaziekin apur bat kimatzen ari zen. Pablo Sastre

Arbolaxka zutik, lanabesekin auto aldera joana Mandi, Joxemari eta Gaston eskoba-palarekin obrako kondarrak zemento zakuan sartzen ari ziren. Pablo Sastre

Baratze honek gisako xarma dauka, ongi begiratu beharrekoa dena: **arbolaxka** txukun inausiak, igali zuhaitzak lorez betetzear, marrubi landareak, mahastiak... Pako Aristi

---

arbolazain

*(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* arbolak zaintzen dituena. ik **basozain**.

AEBetako udal **arbolazainen** elkarteak urteko kale-zuhaitz onena hautatu zuen 2005ean. ETC-prentsa

Zedroak zutunik iraun dezakeen epea zehazteko asmoz, udalak Gerard Passola eta Samuel Alvarez **arbolazainak** eraman zituen atzo Zallara, Bizkaian sekula egin ez den azterketa bat egitera. ETC-prentsa

Misiolari kristaua eta **arbolazain** aitzindaria izan zen, Ohio, Indiana eta Illinoisen sagarrondoa sartu zuen. ETC-entziklopedia

---

arbolazaintza

*(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi) iz* arbolak zaintzeko jarduera. ik **basozaintza**.

Behi-gorotza eraikuntzan (morteroak egiteko), erlezaintzan (kofoinetan emateko), **arbolazaintzan** (landareak igurzteko) edo sutarako erabili izaten zen. ETC-literatura, saiakera

Zoritxarrez, Matthewek Naval Timber and Arboriculture (Itsas zura eta **arbolazaintza**) liburuan argitaratu zituen ikuspegi horiek, eta ez Darwinek ez beste inork ez zituen irakurri. ETC-literatura, saiakera

Horregatik, euskal Estatua ikusi nahi dugun abertzale mendirakoiak, **arbolazaintza** burutsuan aritu beharko gara hemendik aurrera, bai azken intxaurra eskuratzeko, zein jaio berria den euskal haritza sendo hazi dadin. ETC-prentsa

Alvarezek **Arbolazaintza** ikasi zuen Merris Wood Collegen, Erresuma Batuan, eta hari laguntzen hasi zen. ETC-prentsa

Bertan bi urte eginda, diploma bat jaso zuen Lorezaintzan eta Fruitu-**Arbolazaintzan**. ETC-entziklopedia

Hazkuntza bati ekin aurretik lurra goldeaz prestatu behar izaten da, batez ere landareen kasuan eta ez horrenbeste **arbolazaintzan**. ETC-entziklopedia

---

arboldegi *iz* zuhaiztia, arboladia.

Erromeria antolatzen zuten mandio eta **arboldegi** guztiak ezagutzen zituen Andoni Olabek, behin baino gehiagotan izanen zen soinurik gabe jotakoa. Koldo Izagirre

---

arboleztatu *izond* arbolak dituena, arbolez jantzia dagoena.

Egia erran, goizeko freskura goxo honetan, galtzada **arboleztatuan** ibiltzeak ez du gogortasunik. Piarres Aintziart

---

arbolpe *iz* zuhaizpea.

Plaza bazter batean, **arbolpe** baten ondoan, jo genuen hotel baterat. Janbattitt Dirassar

Eta gurutze haren parean, ostatu bat, ostatuaren saihetsean **arbolpe** batek gaitzeko itzala egiten. Janbattitt Dirassar

Gelditu ginen Maiteren etxetik hurbilago, Aturri eta Errobi ibaiak bateratzen diren juntan, hango **arbolpean** diren jartokietan. Janbattitt Dirassar

---

arbonar *iz eta izlag* Lapurdiko Arbonako biztanlea.

Galtzaleak berriz Herve Etcheverry Baigorri Zaharrer Segikoa eta Mendiboure, hau ere beste **arbonar** bat. Herria

Bigarren maileko finala aldiz jokatuko dute urruñar hunek eta **arbonar** horrek. Herria

Maider Cigarroa eta Camille Dizabo senpertar eta **arbonar** gazteak ere entzun ditugu lehen aldikotz Alduden, Peio Chauvinek lagundurik, bai eta ere dantzari bat Adelaide Darraspe. Herria

Arbonar dantzariak ere hor ginituen ikurriñaren dantza eskaintzeko. Herria

---

arboretum *iz* batik bat arbolez osatutakoa parkea.

Ezpeletako merak erran diote berak ere nahi lukeela Herriko etxearen inguruan **arboretum** bat egin. Herria

---

arbotante *iz* eraikin gotikoetan, bobedaren bultzada horma nagusietara bideratzen duen arku itxurako egitura.

Orratza, ojibak, beiradurak eta **arbotanteak**. Koldo Izagirre

Hirietara heltzen zirenean, azalpenak ematen zizkien arkitektoak, eta azaltzen zien zer ziren kapitelak eta zer ziren **arbotanteak**. Unai Elorriaga

Sigi-saga suma zitekeen argi xuria uraren gainean, eta Uhartearen aldean oraindik zutik zirauten **arbotanteak** edo direlako horiek bizi-bizi ari ziren distiratzen zeru beltzean. Joxan Elosegi

---

arbuiaezin *izond* ezin arbuiatuzkoa.

Arbuiaezina deritzozu gaurko giro bareari, nehork ez baitu orain arte urratu, gordinkeriarik beltzenak erranik ere. Xabier Montoia

---

arbuiagarri *izond* arbuiatua izatea merezi duena.

Arbuiagarria da estatu aberatsek urtero milaka milioi dolar gastatzea armamentuan, diru horrek azpigarapenaren kontra borrokatzeko balioko lukeen bitartean. Berria - Mundua

Irakeko Barne Ministerioan atxilotuak torturatzen zituztela frogatu zuten duela hilabete batzuk, eta torturen auzia **"arbuiagarria"** zela esan zuen lehen ministroak, baina horiek ikertzeko batzorde sunita bat eratu zuela gogorazi zuen. Berria - Mundua

Batasuneko ordezkarien jokabidea "zekena eta **arbuiagarria**" dela esan zuen Catalanek. Berria - Euskal Herria

Txileko gizarte katolikoko sektore handi batentzat (bereziki eskuinarentzat) **arbuiagarria** zela jakitun, hauxe esan zuen behin Bacheletek, ironiaz: "Txileko bekatu nagusien isla naiz: emakumea, sozialista, banandua eta agnostikoa". Berria - Harian

Kuxma **arbuiagarria** da: bere agintaldiko hamar urteetan Ukrainako gizartea are gehiago pobretu da. Berria - Mundua

Arima hilak zirela auziaren mamia eta horra zuzendu behar zela arreta guztia, eta, bestetik, deabruak zekiela zer esan nahi ote zuten arima hilek, baina zerbait **arbuiagarria** eta gaiztoa ezkutatzen zutela. Jose Morales

Lasaren ustez, gainera, ETAren jarduna oztopoa da eraikuntza nazionalerako, "giza ikuspegitik erabat **arbuiagarria** eta gaitzesgarria" izateaz gain. Berria - Euskal Herria

Jakina gauza **arbuiagarria** eta ikaragarria dela pertsonak bahitzea eta hiltzea, Munichen gertatu zen bezala. Berria - Kultura

Eta, esan gabe doa, kostunbrismo kontzeptua ez dut hemen erabiltzen zentzu **arbuiagarrian**. Berria - Kultura

Bere garaikideen irizpideak ez baitu onartzen barru sakoneko arima behar dela bizitza **arbuiagarritik** harturiko koadro bat argitzeko eta sorkuntzaren goren mailara eramateko. Jose Morales

Nekazaritza Politika Bateratuak ez ezik, hemengo administrazioen politika **arbuiagarriek** ere zeresan handia eduki dute. Berria - Ekonomia

Urzairen aburuz, "helburu doilor eta **arbuiagarriekin**", eta "eduki faltsu eta iraingarriekin" kritikatu dute bere lana. Berria - Kirola

Gertakariok erabat **arbuiagarriak** dira, demokraziaren aurkakoak direlako. Berria - Euskal Herria

---

arbuiarazi, arbuiaraz(i), arbuiarazten du *ad* arbuiatzera behartu.

Izan ere, bizia bukatzen ez zeneino, minik ez baita hain neketsu denik, edota hain minezko mina denik, gogo onez emandako aholkua **arbuiaraziko** duenik. Patxi Ezkiaga

Ezkontzarekin batera utzi egin zuen lamaliako etxe zaharra, Hilmiako jauregi hartara aldatzeko, eta semeak merkatarien mundutik guztiz at zegoen giro hartan hezi zituen,

nolabait ere aitaren salerosketa mundua **arbuiaraziz**. Patxi Zubizarreta

---

arbuiatu, arbuia(tu), arbuiatzen **1** du *ad* gaitzetsiz baztertu, ontzat ez eman.

Gogorra da egia esatea, baina egia da berak **arbuiatu** nauela, bera gogortu dela bere aldetiko maitasunaren kontra. Josu Zabaleta

-Maitea! Beren artean onartuko naute? Ai ene! Zuk zer uste duzu, zer uste duzu? Onartuko naute? Ez naute **arbuiatuko**? Jose Morales

Ez, etxe berri bat egiten denean bezala, aurrekoa **arbuiatu** eta lurrera botaz, baizik eta artzain hilaren carvinga zuhaitz batean aurkitu, eta haren lerro batzuk areago markatzeko gogoa sentitu duen lagunaren espirituarekin. Bernardo Atxaga

Irakurgai erraz guztiak **arbuiatu** behar al dira? Bernardo Atxaga

Erlijio kristauaren eta mahometarraren izaerari dagokionez, beste azterketarik gabe, bata onartu eta bestea **arbuiatu** beharra dago. Iñaki Iñurrieta

Batasunak **arbuiatu** egin du Espainiako printzeak Nafarroara egindako bisita . Berria - Euskal Herria

Han gertatu zitzaidan bezala, orain ere, gaztea eta ausarta banintz, korta honetako zerrizainen batek utziko lidake estalkiren bat, baina zirtzilez jantzirik nago eta **arbuiatu** egiten naute. Juan Kruz Igerabide

Elsbethek **arbuiatu** egingo ninduela, sentimendu hori ari zitzaidan gailentzen. Anjel Lertxundi

Elsbethek **arbuiatu** egingo ninduela, sentimendu hori ari zitzaidan gailentzen.Ahaleginduko gara gizakiek Poztasunez begiratzen dutela irudikatzen dugun guztia egiten, eta, alderantziz, **arbuiatuko** dugu egitea gizakiek arbuiatzen dutela irudikatzen duguna. Anjel Lertxundi

Beren artekoa naizenez, inoiz ez ditut **arbuiatuko** nireak, zernahi egiten dutela ere. Josu Zabaleta

Bere kezka eta gustuetatik hain urrun zegoen giro txolin hura **arbuiatu**, eta nahiago izan zuen garai hartan Frantzia zen artearen eta kulturaren eremu abantailatsura itzuli. Ramon Saizarbitoria

Denek **arbuiatu** zuten, lege-ukatzaile zelako; denek gorrotoa izan zioten, bere aberriaren eta herritarren zapaltzaile izan zelako, eta Egiptora bultzatu zuten. Elizen arteko biblia

Grazia hau gizakiak ez du **arbuiatu** behar, baizik eta begirunez eta apaltasunez onartu, norberaren txikitasunari eta koldarkeriari erantsiz Jainkoak horrela tratatu izana. Joan Mari Lekuona

Menard-ek, proposatu, gomendatu, eztabaidatu, eta azkenean **arbuiatu** egiten du berrikuntza hori. Juan Garzia

Ongi ulertu beharra dago, baina, zer **arbuiatu** dudan pertsonaia hauengan; ez pertsonaiak berak, bistan da; bai ordea beren drama, zalantzarik gabe, beraiei gehien interesatzen zaiena, baina niri, lehen ere esan ditudan arrazoiengatik, interesatzen ez zitzaidana. Josu Zabaleta

Turinen **arbuiatuak** edo gaizki hartuak, Piamontearen hegoaldeko zenbait landa-herritan aurkitu zuten bizilekua, eta sedaren teknologia ezarri bertan. Juan Garzia

Zein burugabea, aldean duena **arbuiaturik**, beragandik urrun dagoenaren bila doana! Anjel Lertxundi

Frantzisko dohatsuak biziki maite zuen, zeren eta, noblea eta bere herrialdean txit agurgarria izanik, odoleko nobletasuna **arbuiatuz** espiritukoa aukeratu baitzuen. Askoren artean

Ez zitzaien axola nor edo nolakoa zen: aberats izan nahiz behartsu, noble nahiz xume, **arbuiatu** nahiz estimatu, zuhur nahiz sinple eta ezjakin, kleriko nahiz laiko. Askoren artean

Atsegin handia eman zion gotzainari Jainkoaren gizonaren erantzunak, **arbuiatu** egin baitzituen honek munduko gauza iragankor guztiak, eta bereziki dirua. Askoren artean

Oso pozik bizi ziren pobretasunean, ez baitzuten irrikatzen aberastasunik, baizik eta munduzaleek maite dituzten ondasunak eta gauza iragankor guztiak **arbuiatu** egiten zituzten. Askoren artean

Sokratesek sofistak **arbuiatu** izanak arbuiagarri bihurtzen ditu sofistak per se. Askoren artean

Ez da alderik Juduaren eta Grekoaren artean, ezen Jaun bera baita guztientzat, dei egiten dioten guztien asetzeko aski aberatsa, zinez nahi baitu ez dadin izan ez portugesik, ez gaztelarrik, ez frantsesik, ez ingelesik, ez alemanik, ez italiarrik, ez edozein herrikorik **arbuiatuko** lukeenik edo gutietsiko, haren herritar batzuen hutsak edo itzalak ikusi dituelakotz. Piarres Xarriton

Kasu bakoitzean gure kezka bakarra gramatikaren konplexutasuna gutxitzea izan da, eta proposatutako analisia **arbuiatutako** aukerak baino askoz errazagoa dela erakusten saiatu gara. Itziar Laka

2 (era burutua izenondo gisa)

Harria beheraka hasiko da luze gabe, eta maitale **arbuiatuak** ere, bere desesperantzaren poderioz mundutik at sentitzen zenak, gosaria prestatu beharko du, bizarra moztu, bulegora joan, bere adiskideen komentarioa entzun kirolari edo telebistako programari buruz. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adierazpenak arbuiatu** (6); **arbuiatu behar** (12); **arbuiatu ditu** (14); **arbuiatu dituzte** (7); **arbuiatu dugun** (3); **arbuiatu dute** (30); **arbuiatu egin behar** (4); **arbuiatu egin du** (7); **arbuiatu egin dute** (5); **arbuiatu egin ohi** (3); **arbuiatu egin zituen** (6); **arbuiatu egin zuen** (14); **arbuiatu egin zuten** (3); **arbuiatu egingo** (6); **arbuiatu egiten du** (4); **arbuiatu egiten duela** (3); **arbuiatu ere egiten** (3); **arbuiatu ez** (3); **arbuiatu izan** (4); **arbuiatu ondoren** (4); **arbuiatu zituen atzo** (7); **arbuiatu zituzten** (14); **arbuiatu zuen atzo** (9); **arbuiatu zuten atzo** (5); **batasunak arbuiatu** (3); **bera arbuiatu** (3); **berak arbuiatu** (3); **bisita arbuiatu** (3); **dela arbuiatu zuen** (3); **edo arbuiatu** (3); **egindako kritikak arbuiatu** (3); **erabakia arbuiatu zuen** (3); **erabat arbuiatu zuen** (3); **erasoa arbuiatu** (3); **ere arbuiatu du** (4); **ere arbuiatu egin** (4); **ere arbuiatu zuen** (3); **esatea arbuiatu** (3); **eskaintza arbuiatu** (6); **gogor arbuiatu zituen** (3); **guztiak arbuiatu** (5); **hau arbuiatu** (3); **hori arbuiatu** (6); **hura arbuiatu** (4); **indarkeria arbuiatu** (6); **izana arbuiatu du** (4); **izana arbuiatu zuen** (6); **izatea arbuiatu zuen** (3); **jarrera arbuiatu zuen** (7); **kolpe batez arbuiatu** (3); **konstituzioa arbuiatu** (3); **kritikak arbuiatu zituen** (4); **legea arbuiatu** (3); **mozioa arbuiatu** (5); **plana arbuiatu** (8); **torturak arbuiatu** (3)
>
> **arbuia ezazu** (4)
>
> **obedientziaren galga arbuiatuz** (3)
>
> **arbuiatzeko eskatu** (3)
>
> **arbuiatzen ditu** (12); **arbuiatzen dituen** (3); **arbuiatzen dituzte** (4); **arbuiatzen du** (16); **arbuiatzen duen** (6); **arbuiatzen dugu** (7); **arbuiatzen dute** (4); **arbuiatzen dutela irudikatzen** (3); **arbuiatzen duten** (4); **arbuiatzen ez** (5); **arbuiatzen zituela** (3); **arbuiatzen zituen** (3); **arbuiatzen zuen** (4); **batez arbuiatzen** (3); **edo arbuiatzen** (5); **erabat arbuiatzen** (7); **errotik arbuiatzen** (4); **guztiak arbuiatzen** (5)

---

arbuiatzaile *izond* arbuiatzen duena.

Orduan Frantzisko, zekenkeriaren **arbuiatzailea**, apaiza bidegabeki marmarrean ari zela entzutean, hurbildu zen Bernardo jaunarengana, sartu zuen eskua dirua zeukan soingainekoan, bihotz gartsuz eskua diruz beteta atera eta marmarrean ari zen apaizari eman zion. Askoren artean

---

arbuiatze *iz* gaitzetsiz baztertzea, ontzat ez ematea.

Globulu gorriak kopuru handitan sortzeko era bat garatu du Frantziako zientzialari talde batek, etorkizunean erietxeetako odol falta zein **arbuiatze** arazoak saihesteko. Berria - Gaiak

Arbuiatze-mekanismo hori ez da hutsezina (bestela, ez genuke eritasun infekziosorik izango), eta, batzuetan, erdibide bat. Irene Aldasoro

Juan Guzman epaileak ezingo du bihar Augusto Pinochet diktadore ohia itaundu, bere aurkako **arbuiatze** helegitea aurkeztu baitu defentsak. Berria - Mundua

Hauteskunde elkargo baten gain susmoa baldin badago izuarekin berarekin edo izuarekin lotura duten erakundeekin elkar hartuta dagoela, benetan botoaren eta eztabaida librearen bidea baino onartzen ez baditu, gaitzesten, **arbuiatze** eta urruntze adierazpen zalantzarik gabea eman beharko luke. Berria - Euskal Herria

---

arbuio **1** *iz* arbuiatzea; arbuiatzearen ondorioa.

Hala eta guztiz ere, "baztertze" hauek ez dira lotzen **arbuio** batekin edo errepresio batekin.zeuen bihotz barruan, hor saiatu behar duzue arretarik handienaz **arbuio** hori

edukitzen. Xabier Arregi

Arbuio horrek erremediorik gabe kondenatzen du Salammbô. Juan Garzia

Irtenbide negoziatua PSOEk arbuiatu zuen, edo eragile gehiagok parte hartu zuten **arbuio** horretan? Berria - Harian

Nik ihardetsiko dizut, alde batetik, ezen ene baitan ez zela oro aita Bartolomeren aurkako mesprezu eta **arbuio**, zeren eta aita Bartolome oso mintzalari ona baitzen eta miresten bainuen nik alde horretarik. Joan Mari Irigoien

Ez zen, halere, zuhurragoa bihurtu bere **arbuio** eta gaitzespenetan, eta gorrotoan bere lehengo bortizkeria kontrolgabea erakusten zuen. Fernando Rey

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Mendiarenganako **arbuio** handia erakusten zuen: gorrotoa omen zien, berak esana, bota iltzedunei, artilezko galtzerdiei eta eguzkiagatik bere sudurtxo finean agertzen zitzaizkion orin ñimiñoei. Fernando Rey

Nire irudikortasunak geroz eta **arbuio** handiagoa eragiten baitio. Josu Zabaleta

Gizonezkoa alkoholikotzat jotzen da, baina emakumezkoa biziotsu gisa ikusten da, eta askoz **arbuio** gogorragoa eragiten du gizartean. Berria - Gaiak

Eusko Jaurlaritzako Estatutu Proposamenari **"arbuio** eraikitzailea" adieraztea proposatzen zuen zuzenketa ez zuten onartu. Berria - Euskal Herria

Mugimendu hauek, ez gutxitan, nahiagotasun akritikoaren edo **arbuio** pertsonalen araberako bihurtzen dute arrazoiaren datuen araberakoa izan beharko lukeena, gure kasuan, historiaren araberakoa. Jon Alonso

Zeren **arbuio** doilorra eta txirotasun mingotsa biziera gozo eta egonkorraren arerio eta heriotzaren atean gelditzea bezala direla uste ohi baita. Xabier Amuriza

Eta errealitatera itzultze horrek, halako **arbuio** ezkutua piztu zuen nigan. Txillardegi

Ama ere ez zen fidatzen gazte hartaz, gure aitak literatoen munduaganako **arbuio** lanbrotsu eta iluna kutsatu baitzion. Fernando Rey

Iñigo Urkulluk **"arbuio** erabatekoa" agertu zion ETAk indarkeriaren bidez "euskal, galiziar eta espainiar gizarteen bizimoduan esku hartzeari. Berria - Euskal Herria

P. jaunarena berarena baino are zorrotz-zimeltasun tematiagoz eta berrikuntzen **arbuio** grinatsuagoz kudeatzen zuen Ikastegia. Juan Garzia

Baginismoa gizonekiko **arbuio** inkontzientea edo haurtzaroko auskalo zer traumaren ondorioa dela dioten teoriak atzean geratu dira. sendagilea pentsakor gelditu zen delituaren frogari begira, buru eta esku-keinuek **arbuio** argi eta garbia adierazten zuten bitartean. Luis Elberdin

3 (hitz elkartuetan)

Farr jaunak **arbuio** keinu bat egin zuen, baina nik inbidiaz begiratzen nien gazte haiei, argi ikusten bainuen zenbat gustatzen zitzaizkion neskari mutilen moduak. Koro Navarro

Juri Jekhanurov lehen ministroak adierazi zuen, berriz, Legebiltzarraren **arbuio** bozketa horrek ez zuela Gobernua bere jarduera berehala gelditzerat behartzen. Berria - Mundua

Norberaren berdinak dira laborategian horrela ekoitzitakoak eta ez da **arbuio** arazorik izango. Berria - Gaiak

Erakunde armatuetan sarritan gertatu den legez, **arbuio** egite baten eraginez sortu zen Korsikako Nazio Askapen Frontea (FLNC), 1976ko maiatzaren 5ean. Berria - Harian

Ez zion inoiz antzeman berarekiko **arbuio** joerarik, are gutxiago gorroto jarrerarik. Joxemari Iturralde

Aurpegian bertan ere **arbuio** muzin bat agertu bide zait. Txillardegi

Modu sinboliko batean, bere buruarentzat bada ere, ekitaldi harekiko **arbuio** antzeko bat adierazi nahi zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Arbuio moduan, baztanga-pikatu eta gisakoek, antz handia baitute legendunekin. Patziku Perurena

4 ***arbuio egin***

Errusiak eta Txinak, berriz, zigorrak jartzeari **arbuio egiten** diote beti. Berria - Mundua

Alta bada, Gerhard Schroeder kantzilerra zelarik, Alemaniak gerra honi **arbuio egin** zion. Berria - Mundua

Hauek, haatik, Khatamiren eskaera honi **arbuio egin** zioten. Berria - Mundua

Ezin dugu zehazki jakin Hamasek Israelekin negoziatuko lukeen edo jokaera horri **arbuio egiten** jarraituko lukeen. Berria - Mundua

· Erakunde armatuetan sarritan gertatu den legez, **arbuio egite** baten eraginez sortu zen Korsikako Nazio Askapen Frontea (FLNC), 1976ko maiatzaren 5ean. Berria - Harian

Lisandru, hire konpromiso zintzoa eta bidegabekeriari **arbuio egitea** gogoan atxikiko dizkiagu. Berria - Mundua

Basapiztien legeari uko egiten dion, langileak lehia basatian jartzen dituen eta dirudunen aberastea besterik helburu duen Europa bati **arbuio egitea**. Berria - Harian

5 ***arbuio izan*** du *ad*

"Bada bi urte salbuespen horri **arbuio diodala** eta zinez tamalezkotzat hartuko nuke luzatuta izango balitz, preso irakiar batzuek tratu txarrak jasan dituztelarik" aditzerat eman zuen Annanek. Berria - Mundua

Hitz hauekin, Turkiako lehen ministroak argi berretsi zuen Ankarak **arbuio diola** EBko herrialde batzuetako agintari eta indar politikoek aipatutako "abantailazko elkartze" baten formulari. Berria - Mundua

Demokrazia eta legearen alde gaudela berresten dugu eta hauteskunde hauek galarazteko edozein jokaerari **arbuio diogu**. Berria - Harian

Anartean, Konstituzio honi **arbuio diotenek**, herritarren aldetik ezezko botoaren lortzeko ahaleginetan jarduteko asmoa dute. Berria - Mundua

Espainian, aldiz, gerra honi **arbuio zioten** sozialistek dute geroztik boterea berreskuratu. Berria - Mundua

Orduko inkestek zioten frantsesen %75ek Turkia EBn sartzeari **arbuio ziotela**. Berria - Mundua

Talde islamistek **arbuio diete** atzerriko esku-hartzeei. Berria - Mundua

AEBen eskuhartzerik gabe, honi **arbuio baitiote** herritarrek". Berria - Mundua

Beltzari **arbuio**. Gotzon Garate

---

arbustu *(ETCn **51** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **zuhaixka** agertzen da)* **1** *iz* zuhaixka.

Arbustuaren gozoa heldu zaio, oso apaldurik. Pello Lizarralde

Arbustuen loreen usaina udaberri hondarrean, zakurren zaunka ozenak azaroan, trenak igarotzen entzutea, hotza datorren seinale, bai, zalantzarik ez. Joseba Urteaga

2 ***arbustu japoniar*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Trueba parkearen ertzetik igaroko gara, palmondoak eta **arbustu japoniarrak** bistan ditugula. ETC-prentsa

3 ***japoniar arbustu*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Errekan beherexeago, bide bazterrean ezagutu genuen arbustua -arbustu arrunta edo **japoniar arbustua** - edo "deabru-zura" deitzen dena, Ligustrum japonicum. ETC-prentsa

Genero honetan daude Arbustu Ligustrum vulgare edo arbustu arrunta, Ligustrum lucidum edo beltxale distiratsua, eta **Japoniar arbustu** Ligustrum japonicum edo deabru-zura. ETC-entziklopedia

---

ardagai **1** *iz* zuhaitz batzuen azalean bizi den onddo bizkarroia, sua pizteko erabiltzen zena *(Fomes fomentarius).*

Pago bati erantsita, onddo moduko bat dago, **ardagai** bat zinez baina laranja kolore bizikoa, harribitxi bat dirudiena. Bernardo Atxaga

Beste landareak ere onartzen ditu: bai inguruan eta bai gainean edo enborrean gora, hasi goroldioetatik, **ardagai** eta onddo, eta xomorro, koko eta beste, txori klase asko. Pello Zabala

Xerkatzaile on batek, beraz, aldean darama guztia: buztinezko arragoa, zotz-ikatza, **ardagaia**, sutaltzairua, eta beste lanabes bat ere bai, sekretua izanik ezin baitut hemen aipatu. Juan Garzia

Ahmetek, harpe barrenean, sua piztu zuen **ardagaiaz** eta suharriaz. Fernando Rey

2 *ardagai gorrikor* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

"Trametes rubescens" A.-S. ex Fr., **ardagai gorrikor**. ETC-entziklopedia

3 *ardagai konkordun* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

"Trametes gibbosa" (Pers.) Fr., **ardagai konkordun**. ETC-entziklopedia

---

ardaila 1 *iz* iskanbila, zarata.

Bat-batean jendetzaren oihuak eta **ardaila** heldu ziren palazioko leihoetara. Harkaitz Cano

Hotsa eta **ardaila** gero eta gorgarriagoa zen. Edorta Jimenez

Hura zen iskanbila eta **ardaila**, hura zarata eta nahaspila. Karlos Zabala

Dolu-gelan bildutako jendearen errezo-marmarrek kaleko **ardaila** estaltzea lortzen badute ere, inauterizaleen kantuak bisitariaren buruan segitu du. Anjel Lertxundi

Jokatu berria zen orduantxe, New Yorkeko Madison Square Gardenen, Cassius Clay eta Sonny Listonen arteko boxeo konbatea, eta gertaera urrun hark sortutako **ardaila** ez zen baretzen. Bernardo Atxaga

Hamaika **ardaila** ikusia neroni, jaiotetxean bertan, azienda traturako orduan, etxaberei hortzak ongi ezin ikusiz. Patziku Perurena

Orduan **ardaila** eta oihuak zabaldu ziren mahaian. Anton Garikano

Gero eta ozenago den **ardaila** horrek ez du festa-zalapartaren trazarik. Anjel Lertxundi

Segituan harrotu zen **ardaila**, denak garrasi batean, Suschitzky ahots zorrotzez oihuka ari zela: [...]. Anton Garikano

Gutxituz joan zen **ardaila**, Suschitzky andreak soilik jarraitu zuen pixka batean aitzakiekin eta susmoekin, baina jokoak aurrera egin zuen. Anton Garikano

Eta oihuka, **ardaila** batean. Anjel Lertxundi

Ardaila batean jarraitzen zuen hizketan "alkoholaren eta jakintzaren arteko lotura", edo "Erroma zaharrean maisuak andetan eramateko ohitura zoragarria" azalduz. Bernardo Atxaga

Hamaika **ardaila** ikusia neroni, jaiotetxean bertan, azienda traturako orduan, etxaberei hortzak ongi ezin ikusiz. Patziku Perurena

Hurbil zitekeen kupula formako erlategira, zeharka zitezkeen aireko mortuak munduko lurraldeetan barrena bakardadean, eta hurbil zitekeen ondoren erlategiko zurrumurru eta **ardailara**; erlategi hauek jendea ziren. Anton Garikano

Iruditu zitzaion ezen tartetxo labur batez dantzaldi osoa berarengandik urrundu zela bere berbaro eta **ardailarekin**. Jose Morales

Banketea egin ondoren, aienatzen zirenean, beren burrukaldi eta **ardailetan** galdutako luma arin batzuk uzten zituzten, biziaren eta heriotzaren arteko testigu. Patziku Perurena

Ergel batek kontaturiko historia bat, hotsez eta **ardailez** betea. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sendaketaren pozaren antzekoa zen hura, urdaileko minaren zamatik arindutako jendearen **ardaila** ozena. Karlos Zabala

Jende asko dago jantokian, **ardaila** handia da. Anjel Lertxundi

Ardaila handiagoa ateratzen zuen berak bakarrik, haren ondoko ehun eta piko andre hitzontziek baino. Karlos Zabala

Han hartzen zuen babesa, mundutik urrun, merkatuaren **ardaila** etengabearen erdian. Karlos Zabala

Bat-batean, tanta batek harmonia hausten zuen, eta beste guztiak nahas-mahas alai batean katramilatzen ziren, **ardaila** eragabean. Jose Morales

Ardaila sekulakoa da korridorean. Anjel Lertxundi

Txalo mordoa jaso zituen ostera ere, jai-giroko **ardailaren** neurria nabarmen igoaraziz. Pedro Alberdi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ardaila batean** (3); **ardaila handia** (4); **hotsa eta ardaila** (3)

---

ardailaka *adlag* iskanbila batean.

Oraintxe ohartu naiz: Rosario **ardailaka**, pilula eske. Aingeru Epaltza

---

ardailan *adlag* iskanbilan, zarata eginez.

Nik badut halare errezeloa, inork inoiz inongo sedetan edo seminariotan zuzenduko ez didan zain bihurri batek heriotzeraino lagunduko nauena, eta esperantza horrekintxe hasten naiz hemen ere **ardailan**. Patziku Perurena

Asanbladan bildu dira, nola ez, eta usadio duten bezala zoragarrizko **ardailan** hasi dira elkarren artean, gaztetxo bati lapikoan jarri zaiolako ezin dela odolik eman nori ematen zaion jakin gabe. Koldo Izagirre

---

ardailatsu *izond* iskanbilatsua, zaratatsua.

Bizikletaren gurpilak bezala, jiratu egiten ziren trenaren gurpilak ere, baina zarata batean, eta Donostiara ikastera joaten ginen guztiok hizketa **ardailatsuan** egiten genuen hiri arteko bidaia, azkeneko bagoian pilatuta denok, neskak alde batean, mutilak bestean. Bernardo Atxaga

---

ardailatu, ardaila(tu), ardailatzen da *ad* aztoratu.

Ardailatuta ari zen, arnasa estutzen zitzaion. Bernardo Atxaga

---

ardailazale *izond* iskanbilazalea.

Txanberlain ez zen **ardailazalea**. Bernardo Atxaga

---

ardaitu, ardai(tu), ardaitzen da *ad* erabat lehortu.

Bidexkan zehar, zuhaixketako hostoak **ardaiturik** zeuden. Lopez de Arana

ardaitu egiten da, hori, **ardaitu** egiten da erabat! Josu Zabaleta

---

ardandegi *iz* ardoa egiteko, gordetzeko edo saltzeko prestatzen den tokia.

Pirouette kaletik irteten ari zirela, ahots batek Clauderi deitu zion izkinan zegoen **ardandegi** baten txoko ilunetik. Karlos Zabala

Mateoren **ardandegira** jo zuen zuzen, Urrezko Lehoia izenekora, pauso arinez, karrikan zebiltzan emakumeen begirada argiak saihestuz. Felipe Juaristi

Botila bat ardo eskatu eta **ardandegiko** bazter batean, atetik urruti baina handik barrura sartzen zen guztia ikuspegian zuen toki batean eseri zen, buruan trumilka zebilzkion pentsamenduei eskorta jarri nahian. Felipe Juaristi

Joanes **ardandegitik** poz txuriz atera zen, bertan dastatutako ardoari esker. Felipe Juaristi

---

ardangela *iz* ardoa gordetzen den gela.

Ondoan **ardangela** egongo da argia sartzeko leiho bat duela iparraldera begira; beste alde batera begira egongo balitz, eguzkiak berotzen duen alde batera, adibidez, orduan gela horretan dagoen ardoa beroarekin nahastu eta ahuldu egingo litzateke. Santiago Iruretagoiena

Hamaika urte irago dira, krudelkaria, ebaskeria eta gaiztakeria gaiztakeriaren gainean, eta 1261ko Santa Barbara gauerdian mozkor gorotz eginak daude **ardangelan** bandolero guziak, Bidaurreko Corbaran jaun gazteluzaina buru dutela. Patziku Perurena

Nini eta gainerakoak etxeko **ardangelan** zeuden albistea iritsi zenean. Josu Zabaleta

"Double face" horietariko damaskozko errezel eta ohegainekoak; kolibri disekatu bilduma bat, zeinak ukitze hutsaz hauts bilakatu baitziren; **ardangelan**, berriz, hantxe zeutzan botilak, ehundaka, ardo preziatuak oro ozpin. Juan Garzia

---

ardankoi *izond* ardozalea.

Agrafoak, irudimen arinekoak eta **ardankoiak** ziren, baina, entendimentu urrikoak. Patziku Perurena

Haiek erakutsi ziguten galtzak janzten; haiek ferratu ziguten aurreneko zaldia; **ardankoi** haiek egin aurreneko upelak eta pitxerrak; haiek para aurreneko aldiz perrilak lurra lantzeko goldeari. Patziku Perurena

Buru-txikitzaileak, hegaztien zirinen kontrabandoan zaildutako patibularioak, txoto hegalzabaleko begibakarrak, presondegi izugarrienetatik ihes egindako zorritsuak, putaner **ardankoiak** eta horien arteko bulegari itxurako ale bakanak (europarrak edo estatubatuarrak, nire ustez). Jon Alonso

---

ardantzale *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) izond* ardozalea.

Zerk sentiarazten nauen poeta: eta bihozbera eta sentibera banaiz ere (edo aukeran **ardantzalea** eta nahigabetua), idatzi ditudan olerkiak baino ez zaizkit burura etortzen. ETC-prentsa

---

ardantze *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi) iz* mahastia.

Uda arratsaldetan, luzaz ibiliak zirelarik **ardantze** bazterretako bide harritsuetan, edo baserri betean errepidez, eta gariek uhain bazegitenean iguzkitara, aigeru-belar usainak bazoazila airean, halako hats neke batek hartzen zituen, eta bizkarraz lurrera etzaten ziren, burxoratuak, mozkorturik bezala. ETC-literatura, saiakera

Alhor eta **ardantze** landu gutiago baldin bada, hiri eta etxe gutiago, bada jitezko landaretze gehiago, phentze gehiago, xara atherbe itzaltsu gehiago, ezberdintasunak usuago dira eta makurguneak elgarretarik hurbilago. ETC-literatura, saiakera

Erakusten digute behiala paisaia nolakoa zen, zer landaredia zegoen, oihanik zegoen ala ez, nolako lanbideak zituzten eta aunitzetan desagertu diren gauzak ere bai: **ardantzeak** iparraldean edo hariztiak hegoaldean, adibidez. ETC-prentsa

XIX. mendean, haatik, beherakada nabarmena izan zuen **ardantze** lanak, eta, hamarkada batzuk etsipenean eman ostean, hainbat mahastizainek ahalegin bizian aritzeko konpromisoa hartu zuten 1953an. ETC-prentsa

- Finkak, baratzeak, larreak, **ardantzeak**, olibondo-sailak, zuhaiztiak, pinudiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta zer den nagiaren landatik eta ero gobernugabearen mahastitik edo **ardantzetik** iragatea deklaratzen du Glosak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hain zuzen ere baselizaren ondoko **ardantze** batean aurkitu ziren 1583. urtean brontzezko bi lamina I. eta II. mendetan datauriko latinezko inskripzioekin. ETC-entziklopedia

Ezkaba mendi hegaleko **ardantzeen** mahatsekin ekoizten da. ETC-entziklopedia

---

ardao ik **ardo**.

---

ardatz **1** zerbait bere buruari buruz birarazteko balio duen atal luzea; biraketa baten erdigune den lerro irudizkoa.

Lehenbiziko trenbidetik zamatren luze bat pasatu zen, ziztu bizian zihoan eta **ardatzek**, errailen junturen artetik pasatzean, trikitraka neurtu eta sakona egiten zuten. Fernando Rey

Mosteko arrotik ikatza zekarren tren bat zen, segur aski ehun eta berrogei **ardatzekoa**, eta trenaren erdian balazta bateko zapata traban zen, gorigori zegoen eta metalari tantak zerizkion errailaren gainera. Fernando Rey

Aparatu biribil bat zegoen aulki baten gainean, **ardatzean** lanpara bat zuena. Anjel Lertxundi

Gure landroverra marga edo dena delako buztin labainkor hartan zegoen **ardatzeraino** sartua, eta Herbert ur-depositua hornitzen ari. Joxe Austin Arrieta

Eta hamar minuturo gizon bat kubertara, zubira igota lemaren **ardatzean** ipinia genuen giltza ingelesa estutzera. Koldo Izagirre

Erruberatzar horren **ardatzean**, bi aldetatik, metro-metroterdiko egurrezko kirten heldulekuak ipintzen zizkioten, bi gaztek eroso heltzeko modukoak, malkarrean behera eraman behar baitzuten biribilka, erruberaren lastoari su eman eta gero. Pello Zabala

Adela gabe, **ardatzik** gabeko planeta iruditzen zitzaidan auzoa. Juan Kruz Igerabide

2 gauza edo pertsona zeinaren inguruan zerbait gertatzen edo funtsatzen baita.

Gai hori **ardatza** da gure borrokan. Berria - Euskal Herria

Arau komunikatiboak **ardatza** izan behar du ikasketan. Berria - Euskal Herria

Arau komunikatiboak izan behar du hizkuntz prozesuaren **ardatza**". Berria - Euskal Herria

Hiru **ardatz** horiek ondokoak dira: Euskal Herriak pairatzen duen gatazka lurralde osoan behin betiko gainditzea, aterabide integratzaileak bilatzea eta, azkenik, Euskal Herri osoaren onespena bermatzea. Berria - Euskal Herria

Laugarren **ardatza** euskara da, eta bertan euskalgintzaren azken albisteak, euskaldun berriei elkarrizketak eta hizkuntza eskubideen eskainiriko orria izango da". Berria - Euskal Herria

Ideia hori oinarri hartuta, bost **ardatz** ditu Bake eta Bizikidetzarako Planak: giza eskubide guztiak defendatzea eta sustatzea; "terrorismoaren biktima guztiei" elkartasuna adieraztea; oroimen historikoa berreskuratzea eta frankismoaren garaiko biktimei ordaina ematea; askatasun nahiz eskubide zibil eta politikoen alde lan egitea; eta torturari aurre hartzea eta atxilotutako zein preso dauden pertsonen eskubideak errespetatzea. Berria - Euskal Herria

Berrikuntzen **Ardatza** da planaren izarretako bat, Langraiz-Foronda-Gasteiz-Agurain bidea egingo lukeen tranbiaren proposamenarekin batera (honek ez du aldaketarik izan azkeneko fasean). Berria - Euskal Herria

Eztabaidaren beste **ardatza**, gatazka gainditzeko bidearen ingurukoa izango da. Berria - Euskal Herria

Emakumea izan zuten **ardatz**, atzo, kanpaina ekitaldi gehienek; eta hautagaiak manifestazioetan izan ziren. Berria - Euskal Herria

Bi agintariek azpiegituren inguruko egitasmoez luze hitz egin zuten atzoko bilkuran, batik bat, Piriniotako **ardatzaz** eta Abiadura Handiko Trenaz. Berria - Euskal Herria

Bere proposamena eztabaidaren **ardatza** izango dela erantzun dio Ibarretxek Sevillari. Berria - Euskal Herria

Alderdiak eta eragileak proposamenak egiten ari dira: Ibarretxek egin du berea, PSOEk ere bai; guk ere gurea eginen dugu hiru **ardatzen** inguruan. Berria - Euskal Herria

Hondamen hori, oroz gain, gaur egun munduko ekonomian nagusi diren hiru **ardatzen** (Estatu Batuen, Mendebaldeko Europaren eta Japoniaren) arteko teknologia- eta finantza-harreman indarrezkoen oreka berriaren adierazpide da. Koro Navarro

Hiru **ardatzeko** plana. Berria - Ekonomia

Dirua da gizarte berriaren ikur adierazgarrienetako bat, eta Frantziskok uko egingo dio erabat diruari eta pobretasuna izango du bere proiektuaren **ardatzetako** bat. Askoren artean

Hala, bada, samurtasuna gure afektibitatearen eta sexualitatearen **ardatzetako** bat da. Luis Elberdin

Elkartearen iparra, bertsolaritzaren kultur proiektua, hiru **ardatzetan** marrazten da: belaunaldi-transmisioa, hedapenaren antolaketa eta dokumentazioa-ikerketa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Elkarte hori lau **ardatzetan** ari da lanean: ikerlanak bultzatu, bihar eri guziak senda diten; mediku-artak hobetu gaurdanik; bizi kalitatea hobetu eri eta hurbilekoeri; informazioa zabaldu. Herria

Militantzia nere bizialdiko **ardatzetako** bat izan dela ohartzen naiz. Patziku Perurena

Sorterrian oraindik trenbidea dugu eguneroko bizimoduaren **ardatzetako** bat. Edorta Jimenez

NASAk proiektu asko ditu martxan denbora berean (adibidez, abuztuaren 2an Merkuriora joango den espaziontzia jaurtiko dute aspaldiko partez), baina orokorrean, eginkizun nagusiak hiru **ardatzetan** biltzen dira. Berria - Gaiak

Intxortako ekialdean bakarturik, Ubera ibarreko **ardatzean** zegoenez, erakargarria gertatzen zitzaien etxea, antza, Heinkel 111 eta Junker 52 bonbaketarien eskolta gisa pasatu ohi ziren Heinkel 51 ehiztariei. Ramon Saizarbitoria

Lentearen **ardatzetik** hurbileko argi-izpiek objektuaren ertzetakoek baino urrunago lortzen dute fokua, eta horregatik gertatzen da aberrazio esferikoa. Irene Aldasoro

Neure "hirurteko menditsuan" ere... gure herriaren kultur izana nuen helburu; eta **ardatzean** euskara bera. Txillardegi

Euskal Y-a egitasmo nagusietako bat zen ardatz transeuroparrean, eta, nik dakidanez, oraingoz behinik behin, mugaz gaindiko **ardatzik** ez da egiten Bilbo-Madril tartearekin Berria - Euskal Herria

3 (izenondo, izenlagun eta kidekoekin)

"Lurraldearen garapen orekatua eta gizarte kohesioa" izango dira, Txabarriren esanetan, planaren **ardatz** nagusiak. Berria - Euskal Herria

Ardatz Atlantikoan dauden eskualdeek Europako Batasunean izan beharreko parte-hartze zuzena aldarrikatu zuten, atzo, Bilbon egindako Batzar Nagusian. Berria - Euskal Herria

Berme hori hiru mailatan eman beharko litzatekeela dio **Ardatz** Atlantikoko eskualdeen adierazpenak: "eskualdeen garapenerako programen lanketan, gaiak hautatzeko egin beharreko negoziazioetan eta gestio ereduak ezartzerakoan". Berria - Euskal Herria

Euskal Y-a egitasmo nagusietako bat zen **ardatz** transeuroparrean. Berria - Euskal Herria

Milaka eta milaka liburu egundoko erregaia dira, **ardatzik** sendoena ere urtzeko modukoa. Iñaki Iñurrieta

Eta, nik dakidanez, oraingoz behinik behin, mugaz gaindiko **ardatzik** ez da egiten Bilbo-Madril tartearekin", Hizkuntza erakunde bat dela garbi utzi nahian, Whitney-k behin eta berriro azpimarratu du ikurren arbitrariotasuna, eta era horretara, bere benetako **ardatzean** kokatu du hizkuntzalaritza. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan)

Beirazko bere luma tintontzian busti eta hau idatzi zuen Ruche jaunak koordenatu-**ardatzen** marrazkiaren azpian, bere koaderno azaleztatuan: [...]. Jon Muñoz

Begitik urrutien dauden elementuek ikuspen-**ardatzetik** hurbilago dagoen irudi bat osatzen dute. Josu Zabaleta

Areago, eskualde honetan, eta masa demografikoa oso handia den arren, hazkundearen erritmoa, biztanleko, lau aldiz lasterragoa da beste eskualde-**ardatzetakoa** baino. Hala eta guztiz ere, datu horiek nahiko ondo islatzen dute inbertsio-**ardatzen** eta inbertsio-hartzaileen arteko hierarkia. Koro Navarro

Batzarrari dagokionez, goiz partean taldeka banatuko dira eta lan **ardatzak** zehaztuko dituzte, "horietan Europarekiko dauden loturak aztertu eta horien aurrean sortu beharreko alternatibak mamitzeko bideak finkatzeko". Berria - Euskal Herria

Ekar dezagun gogora, adibidez, bat baizik ez aipatzeagatik, "arrain-hezurrezko" perspektiba deitua ("ihes-**ardatzezko** perspektiba" ere deitua); honetan, koadroaren planoari buruz perpendikular diren zuzenak erdiko ardatz baterantz dute konbergentzia, eta ez puntu baterantz. Josu Zabaleta

5 *abzisa ardatz*

"x'x, **abzisa-ardatza**", esan zuen ahapeka. Jon Muñoz

6 *ardatz akromatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Ardatz akromatikoak eukariotoetan zelula zatitzera doanean kromosometako kromatida ahizpak zelula alabetan banatzeko zitoeskeletoko egiturari egiten dio erreferentzia. ETC-entziklopedia

7 *ardatz kartesiar* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Baina matematikan ari garenean, lerro zuzen infinituki mehea adierazten du **ardatz kartesiarra** esatean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horregatik, y=mx b ekuazioan m konstanteak zuzenaren malda adierazten du eta, b konstanteak, zuzenak y **ardatz kartesiarra** zein puntutan mozten duen. ETC-entziklopedia

8 *ardatz kronologiko* *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Historiaren garai ezberdinetan gertatutakoa irudikatzeko era egokia da **ardatz kronologikoa**. ETC-entziklopedia

Baina ez gaitezen aurreratu, jarrai dezagun **ardatz kronologikoa**. ETC-literatura, saiakera

Nago, horrek eman diezaiokeela gutxieneko koherentzia testu honi, bai behintzat **ardatz kronologikoak** baino gehiago. ETC-literatura, saiakera

Aipatu bezala, badu kronika honek ezaugarri berezi bat: denbora bainoago, **ardatz kronologikoa** bainoago, geografiak ditu zutabe nagusi. ETC-literatura, saiakera

Autobiografia curriculum vitaeren antzeko generoa da eta, normalean, **ardatz kronologiko** bati jarraituz antolatzen da. ETC-prentsa

Plano bakarreko sekuentzia luzeak, konposizio formal zainduak, kontaketa pausatuak, **ardatz kronologikoaren** eta erritmoaren hausturak? ETC-prentsa

Alvaro Rodriguez Fominaya erakusketako komisarioak **ardatz kronologikoari** jarraitu dio lanak antolatzerakoan. ETC-prentsa

Igandeko atalean, maleta horretan bertan, larru gorriaren gainean, Lujanbioren **ardatz kronologikoa** marraztuko dute. ETC-prentsa

Bestalde, memoria honetan jasotzen ditudan hamar ariketak **ardatz kronologikoan** aztertu eta alderatuta, nolabaiteko kalitate-galtze progresiboa antzematen dela uste dut. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ardatz kronologikoa duen azpikapitulu honetarako, oso baliagarria suertatu zaigu Bardou-Boinier-en eta Pailliart-en (1999) lana. ETC-zientzia, zuzenbidea

Denbora-orientazio egokia eskuratzeko, hurrenkera-**ardatz kronologikoan** gertaerak kokatzen ikasi behar dute haurrek. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *ardatz mitotiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Heald eta Karsentiren esperimentuek azaltzen dute **ardatz mitotiko** funtzionalak eta nukleoak eratzen direla Xenopus arrautza zatietan inkubatutako ADNz inguratutako aleen inguruan eta mikrotubuluen matrize bipolarrak sortzen dira zentrosoma eta kinetokoro faltan. ETC-entziklopedia

10 *ardatz salto* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Kamera **ardatz saltoak** behin eta berriz errepikatu zein racord akatsak maiz egiten dituzte. ETC-prentsa

Narrazioak, bidaia-koadroak eta irratirako gidoiak idazten hasi zen - "Die Wand" (1965, "Horma"), "Porträt eines Nachmittags " (1967, "Arratsalde baten erretratua"), [...] "Sonntag, Achsensprung, Gesundheit! " (1980, "Igandea, **ardatz saltoa**, topa!"). ETC-entziklopedia

11 *ardatzean ari izan*

Ardatzean ari zen, burua makur. Gotzon Garate

12 *ardatzezko* *izond* erabateko garrantzia duena.

Emigrazioaren argumentua historia unibertsalarentzat orokorra eta **ardatzezkoa** bihurtu da. Joxe Azurmendi

13 ***biratze ardatz*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Gainazal bateko elementu bakoitzaren eta elementu horretatik **biratze-ardatz** planokidera bitarteko distantziaren karratuaren biderkaduren batura. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ponpaketa-konfigurazioko zeharkako sekziotik goragunedun zeharkako sekziorainoko aldakuntza dela eta, zeharkako sekzioaren **biratze-ardatzaren** kokapena definitu behar da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Heterogeneoak izatea da asteroideen ezaugarri nagusia: haien gainaldea irregularra da; **biratze ardatza** norabidetua dute itxuraz, eta errotazio periodoa, askotarikoa. ETC-entziklopedia

Teoria klasikoaren arabera, gasezko hodei protogalaktiko bat, biratuz ari zena, bere **biratze ardatzari** buruz perpendikular zapalduz uzkurturik eratuak bide dira galaxiak. ETC-entziklopedia

14 ***ekliptikaren ardatz*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ekliptikaren ardatza, ekliptikaren planoarekiko perpendikularra den lerroa da. Zeru esferarekin dituen mozketak ekliptikaren poloak dira, iparraldekoa eta hegoaldekoa. ETC-entziklopedia

Ilargiaren orbita konplexuaren eraginez, Lurraren ardatzaren eta **ekliptikaren ardatzaren** arteko angelua ez da konstante mantentzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

15 ***errotazio ardatz*** *(corpusean ez dago; ETCn **162** agerraldi)*

Lurraren eta ilargiaren **errotazio ardatzetan** ikusiriko mugimenduek indar unibertsal horren lekukotasuna ematen dute halaber. ETC-literatura, saiakera

Sahara betetzeko desplazatu beharko litzatekeen ur-masa itzelak Lurraren **errotazio-ardatza** mugiaraz lezakeela zen beste kezketako bat. ETC-literatura, saiakera

Polo geografikoak, hego eta ipar, Lurraren **errotazio ardatza** azaleratzen den bi puntuetan daude, teorian (errealitatean, desbideratze txiki bat dago). ETC-prentsa

Aldi berean, Lurrak bere baitan jiratzen du, baina **errotazio ardatza** ez da Lurrak eta Eguzkiak osatzen duten planoarekiko perpendikularra; 23'5ºko inklinazioa du. ETC-prentsa

Lurraren eremu magnetiko normala Lurraren erdian eta planetaren **errotazio ardatzarekiko** 11? okertuta kokatutako iman-barra batek eratutakoaren parekoa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Errotazio-ardatzarekiko posizio erlatiboak finkatzen du, beste ezerk baino gehiago, leku baten klima, adibidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurraren **errotazio-ardatzak** behaketa astronomiko soilaz koka daitekeen erreferentzia-esparru bat eskaini zuenez, laster hartu zen ipar polorako norabidea benetako ipar gisa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Plano ekuatoriala: gorputz birakari baten **errotazio-ardatzarekiko** zut eta haren bi poloekiko distantzia berera dagoena, Lurraren ekuatorea bezala. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hazkuntza hori makla-plano batek, **errotazio-ardatz** batek edo makla-zentroak eragin dezake. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zirkulu polarren latitudea Lurraren **errotazio ardatzaren** inklinazioak mugatzen du. ETC-entziklopedia

16 ***gurdi ardatz***

Jabeak kontatzen du pasadizoa, **gurdi-ardatzaren** jabea bada historiaren jabe ere. Anjel Lertxundi

Bada pinurik Errusiako mugan, eta **gurdi ardatzak** berez sortzen dira basoan. Karlos Zabala

Zorionez **gurdi ardatz** bat zegoen bazter batean. Edorta Jimenez

17 ***kartesiar ardatz*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Matematikan, maila kurbak bi aldagai askeko funtzioak grafikoki irudikatzeko modu bat da. Bi aldagai askeko funtzioak hiru **kartesiar ardatzetan** irudikatzen dira, bi aldagai askeetarako eta beste bat mendeko aldagairako. ETC-entziklopedia

18 ***koordenatu-ardatz***

Gero, irribarre maltzur bat ezpainetan zuela, beirazko bere luma tintontzian busti eta hau idatzi zuen Ruche jaunak **koordenatu-ardatzen** marrazkiaren azpian, bere koaderno azaleztatuan. Jon Muñoz

19 ***lurraren ardatz***

Lurraren ardatza finkoa ez dela asmatu zuen, bere taulen zehaztasunari esker! Jon Muñoz

Lurraren ardatzaren inklinazioa segundo-milaren bat aldatu eta, hartara, hiru mikrosegundo azkarrago mugitzen da orain planeta. Berria - Harian

Baina gutxik dakite, esferoide batek duenaren antzeko zapalketak soilik galarazten duela lur irmoaren goraketek edo agian lurrikarek sortutako mendi txikiagoek **ere lurraren** ardatza jarraituki eta luze gabe nabarmenki higiaraztea. Ibon Uribarri

20 ***munduaren ardatz***

Zer da ba bitxia **munduaren ardatza** zarela sentitzea munduaren zoko baztertu honetan!». Berria - Kultura

Bada, nire tresnen kutxatxoan neroan hobarizko mapa edo karta erakutsi nion, eta bertan erakutsi zidan Martinek **munduaren ardatzak** non ziren. Edorta Jimenez

Munduaren zilborrean dagoela **munduaren ardatza** ere, hor Konstiko plazan, hori ziok testuak. Iñaki Iñurrieta

Ez ahaztu hori: zakurrarentzat zeu zara **munduaren ardatza**, bere biziaren oinarria. Gotzon Garate

Zeren, zer alde dagoela uste dugu Britainiako klimatik **munduaren ardatza** okertzen den Egiptokora, edo zer alde dago Pontotik C-dizera eta kolore erreko herri beltzetara? Xabier Amuriza

Horiei guztiei aurre egiten ikasi baitut, eta ez da zaila: borondatea da **munduaren ardatza**. Karlos Linazasoro

Antzinakoentzat, "**munduaren ardatza**" zen meridiano hori, eta harrezkeroztik hura izan da mapa geografiko guztien oinarria. Jon Muñoz

-Paradoxak mugiarazten ditu **munduaren ardatzak**. Karlos Linazasoro

Biak, hala ere, **munduaren ardatza** euren sukaldetik bakarrik pasatzen dela sinetsita bizi dira. Hasier Etxeberria

21 ***ordenatu-ardatz*** *(corpusean ez dago; ETCn **46** agerraldi)*

Fase diagrama ohikoenak presio-tenperatura diagramak dira, **ordenatu ardatzean** presioa eta abzisa ardatzean tenperatura kokatuz. ETC-entziklopedia

Mendeko aldagai bat eta aldagai independente bat dituen funtzio bat irudika daiteke grafikoki, bi ardatz erabiliz: abzisa-ardatza eta **ordenatu-ardatza**. ETC-entziklopedia

Funtzio bikoitiak (x2 edo cos x, besteak beste) **ordenatu-ardatzarekiko** simetrikoak dira; funtzio bakoitiak, berriz (x edo sin x, esaterako), zeinua aldatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontuan izan muturreko barofiloek (eskuineko **ordenatu-ardatza**) hazkuntza-tasa geldoagoa dutela (edozein presiotan) bakterio barotolerante eta barofiloek baino (ezkerreko **ordenatu-ardatza**). ETC-zientzia, zuzenbidea

Eskala bertikal bat eraikitzen da, **ordenatu-ardatza** (AA') lerroarekiko paralelo orientatuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Deformazioa tentsioarekiko proportzionala denean, deformazioari elastiko deritzo; **ordenatu-ardatzean** tentsioa adieraziz eta abzisetan deformazioa, hurrengo irudian agertzen den erlazio lineala lortzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Barrez osaturiko diagrama bat da, non abzisa-ardatzean aldagaiaren balioak eta **ordenatu-ardatzean** maiztasun absolutuak adieraziko diren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egoera horretan, pertsonak erronka txiki bati egiten dio aurre (**ordenatu-ardatza**), eta, era berean, abileziamaila txikia dauka (abzisa-ardatza). ETC-zientzia, zuzenbidea

Ordenatu-ardatzak intentsitate transmitituaren eta erasotzailearen arteko zatidura adierazten du. ETC-zientzia, zuzenbidea

22 ***potentzia ardatz*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Geometrian, zentrokideak ez diren bi zirkunferentzien **potentzia-ardatza** leku geometrikoa da non puntuak potentzia bera duten bi zirkunferentziekiko. ETC-entziklopedia

23 ***simetria ardatz*** *(corpusean ez dago; ETCn **165** agerraldi)*

Behean, halletik goiko solairuetara zeraman eskailera kiribilduak ezartzen zuen **simetria-ardatzaren** ezkerraldean, ikasgelak zeuden, haiek ere luxu handirik gabeak. ETC-literatura, saiakera

Hori zantzu garrantzitsua izan zen benetan, **simetria-ardatz** bikoitzak zirela iradokitzen baitzuen, zuntzardatzarekiko perpendikular, helize-eredu bikoitzaren bi kateek kontrako norabideetan joatea eskatzen zutenak, baina argi dago giltza hori askoz lehenago lortu zezakeela. ETC-literatura, saiakera

Seinalea simetrikoa bada, seinalearen erdia **simetria-ardatzetik** gora dago, eta beste erdia, behera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Simetriak gorputzeko egituren parakera kontsideratuko du ondoko hiru elementuon arabera: simetria-zentroa, **simetria-ardatza** eta simetria-planoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Irudian, geziek adierazten dituzte ebakiduraguneak, eta marradun lerroak, **simetria-ardatza**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina, beste alde batetik, apur bat pentsatzen hasita, gizaki guztiok gara antzeko-antzekoak: **simetria-ardatz** orokorra, burua goiko partean, sudurpean ahoa, begiak bekainen azpian. ETC-zientzia, zuzenbidea

'X' deformazio-ardatz maximoaren orientazioa oraindik ezaguna ez bada, grafikoaren **simetria-ardatzak** ematen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Letrak, barneko **simetria-ardatza** duten formak eta ordena lantzeaz gain, saguaren erabilera eta ordenagailuen gelako arauak landuko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bertatik sarrerako ateraino eraikuntza guztia luzeran zeharkatzen duen **simetria ardatza** markatzen da. ETC-entziklopedia

Hainbat irudi geometrikoren barizentroa **simetria-ardatzek** edo simetria-planoek (2 edo 3 dimentsioko espazioaren arabera) elkar ebakitzen duten puntua da. ETC-entziklopedia

Geometrian, bikonoa biraketa-gainazal bat da, erronbo bat bere **simetria ardatzaren** inguruan biratzean sortzen dena. ETC-entziklopedia

Zirkuluaren erditik pasatzen diren zuzenak bakarrik izan ahal dira zirkuluaren **simetria-ardatzak**. ETC-entziklopedia

24 *zenbakizko ardatz* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Zuzen erreala, zenbakizko zuzena edo **zenbakizko ardatza** zenbaki errealen multzoaren adierazpen geometriko bat da, non zenbaki arruntak nabarmen agertzen diren, uniformeki banatuta. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akordioaren ardatz (3); **ardatz atlantikoko eskualdeen** (3); **ardatz bakarra** (10); **ardatz batean** (4); **ardatz baten inguruan** (3); **ardatz batzuk** (4); **ardatz bera** (3); **ardatz beraren** (3); **ardatz bihurtu zen** (3); **ardatz bilakatu da** (3); **ardatz diren** (4); **ardatz dituela** (3); **ardatz dituen** (6); **ardatz duen** (8); **ardatz duten** (6); **ardatz estrategiko** (3); **ardatz estrategikoa** (5); **ardatz estrategikoak** (6); **ardatz eta abiapuntu** (3); **ardatz gisa** (12); **ardatz harturik** (12); **ardatz hartuta** (27); **ardatz horietan** (3); **ardatz horizontal** (3); **ardatz horretan** (8); **ardatz izango ditu** (6); **ardatz izango duen** (7); **ardatz izatea** (5); **ardatz izaten** (5); **ardatz moduan** (6); **ardatz nagusi ditu** (7); **ardatz nagusi izango** (7); **ardatz nagusia euskal** (3); **ardatz nagusiei** (3); **ardatz nagusien** (3); **ardatz nagusietako bat** (15); **ardatz nagusietan** (4); **ardatz nagusietarikoa** (4); **ardatz nagusiren inguruan** (3); **ardatz nagusitzat** (5); **ardatz txiki** (3); **ardatz zuen** (3); **baten ardatz** (5); **bere ardatz** (3); **bere bizitzaren ardatz** (5); **bere lanaren ardatz** (4); **beste ardatz bat** (4); **beti ardatz** (3); **bi ardatz ditu** (3); **bi ardatz izan** (3); **bi ardatz izango** (3); **bi ardatz nagusi** (7); **bi ardatz nagusitan** (3); **bi lan ardatz** (3); **bizi proiektuaren ardatz** (3); **bizitzako ardatz** (3); **bost ardatz** (5); **da ardatz nagusia** (5); **da ardatz nagusietako** (3); **defentsaren ardatz** (3); **dira ardatz** (5); **dituen ardatz** (4); **dituzte ardatz** (6); **du ardatz nagusi** (5); **duen ardatz** (5); **edo ardatz** (4); **ekimenaren ardatz nagusiak** (3); **ekonomiaren ardatz** (3); **ekonomikoaren ardatz** (3); **erakusketaren ardatz** (3); **ere ardatz** (5); **euskal herria ardatz** (4); **euskara ardatz** (3); **eztabaidaren ardatz** (4); **guztien ardatz** (6); **hiru ardatz ditu** (3); **hiru ardatz horiek** (3); **hiru ardatz horien** (3); **hiru ardatz izango** (3); **hiru ardatz nagusi** (14); **honen ardatz** (6); **horren ardatz** (6); **ituna ardatz** (3); **izan zen ardatz** (4); **izan zituen ardatz** (3); **izan zuen ardatz** (7); **izan zuten ardatz** (4); **izango da ardatz** (3); **izango ditu ardatz** (3); **izango du ardatz** (10); **izango dute ardatz** (3); **juridikoaren ardatz nagusiak** (3); **kanpainako ardatz** (3); **kanpainaren ardatz** (5); **lau ardatz** (4); **luke ardatz** (3); **munduaren ardatz** (3); **nagusi eta ardatz** (6); **planaren ardatz nagusiak** (3); **politikaren ardatz** (5); **politikoaren ardatz** (4); **programako ardatz** (3); **programaren ardatz nagusiak** (3); **sistema juridikoaren ardatz** (3)

ardatza apurtu (3); **ardatza arroudet** (3); **ardatza bere** (3); **ardatza da** (16); **ardatza dela** (3); **ardatza den** (4); **ardatza ere** (4); **ardatza herri galdeketan** (3); **ardatza hori** (4); **ardatza izan behar** (3); **ardatza izan da** (5); **ardatza izan zen** (3); **ardatza izango dela** (3); **ardatza osatzen** (4); **ardatza zen** (5); **atlantikoko ardatza** (5); **baten ardatza** (4); **berriaren ardatza herri** (3); **berrikuntzen ardatza** (3); **beste ardatza** (3); **bigarren ardatza** (7); **bizitzaren ardatza** (4); **du ardatza** (3); **duen ardatza** (3); **egitasmoaren ardatza** (4); **ehuleen ardatza** (3); **emakumearen plazeraren ardatza** (3); **erakusketaren ardatza** (5); **euskal ardatza** (3); **eztabaidaren ardatza** (4); **filmaren ardatza** (4); **gaizkiaren ardatza** (7); **gurdi ardatza** (3); **gure ardatza** (3); **guztiaren ardatza** (6); **honen ardatza** (4); **izango da ardatza** (4); **jaialdiaren ardatza** (3); **kontakizunaren ardatza** (4); **kulturaren ardatza** (3); **lan ardatza** (3); **lanaren ardatza** (6); **lurraren ardatza** (3); **munduaren ardatza** (18); **ongiaren ardatza** (3); **politiko berriaren ardatza** (3); **prozesuaren ardatza** (3); **sexualeko ardatza** (4); **taldearen ardatza** (7); **taldeko ardatza** (3)

ardatzak zehaztu (3); **bi ardatzak** (4); **dira ardatzak** (4); **hiru ardatzak** (4); **horren ardatzak** (3); **lan ardatzak** (4); **munduaren ardatzak** (4)

ardatzaren jabeak (3); **ardatzaren luzera da** (3); **bere ardatzaren gainean** (3); **bere ardatzaren inguruan** (4); **gurdi ardatzaren** (4)

ardatzari eragiten (3); **bere ardatzari** (3)

ardatzean kokatu (3); **ardatzean kokaturiko gauza** (3); **horren ardatzean** (3); **lehen ardatzean kokaturiko** (3)

ardatzen artean (3); **bi ardatzen** (4); **hiru ardatzen inguruan** (4)

ardatzetako bat da (4); **ardatzetako bat izan** (8); **lanaren ardatzetako bat** (4); **taldearen ardatzetako bat** (4)

hiru ardatzetan (8)

ardatzetariko bat (4)

---

ardatzerdi *(corpusean ez dago; ETCn 102 agerraldi)* **1** *iz* ardatz bateko erdietako bakoitza.

Planeta baten orbitaren **ardatzerdi** nagusiaren kuboa eta bere periodoaren karratua zuzenki proportzionalak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Elipseen elementuen izenak hauexek dira: fokuak, simetria-ardatzak, erpinak, **ardatzerdi** nagusia, **ardatzerdi** txikia, distantzia fokala. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pentsatuko dugu izpi bat ateratzen dela jatorritik; izpi hori, OX **ardatzerdi** positibotik hasita, erlojuaren orratzen kontra mugituko dugu, bira bat osatu arte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Elipsoidearen kasuan, V=--frac 43pi abc formula erabiliz, a,b ext eta c elipsoidearen **ardatzerdiak** izanik. ETC-entziklopedia

Udako solstizioa planeta bateko hemisferio bateko **ardatzerdi** baten makurdura axiala planeta hori orbitatzen ari den izarrerantz gehien makurtzen den unea da. ETC-entziklopedia

2 *ardatzerdi handi* *(corpusean ez dago; ETCn 41 agerraldi)*

Ardatzerdi handia, geometrian, elipse baten ardatz handiaren erdia da. [...] **Ardatzerdi handia** ardatz honen erdia da, eta zentrotik foku batera eta, ondoren, perimetroraino hedatzen da. ETC-entziklopedia

4.2 irudia Ardatz ekuatorialaren (**ardatzerdi handiaren**) luzeraren (a) eta ardatz polarraren (ardatzerdi txikiaren) (b) luzera erlatiboek zehazten dute elipsoide zabalaren itxura. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hurbilketa hobea litzateke esatea Lurra bi muturrak zapalduta dituen esfera bat dela (elipsoide bat), 6.378,4 km-ko **ardatzerdi handia** eta 6.356,9 km-ko ardatzerdi txikia dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

ardau ik **ardo**.

---

ardazketa *(corpusean ez dago; ETCn 6 agerraldi)* *iz* ehun-gaia hari bihurtzea. ik **irute**; **ehuntze**.

Historiaurreko gizakiak suaren, lanabesen eta nekazaritzaren erabilera deskubritu zuen, animaliak hazi, etxekotu eta uhalez jantzi zituen, goldea, zeramika, **ardazketa** eta ehuntze-teknika asmatu zituen eta pigmentu organikoen eta ez-organikoen erabilera ezagutu zuen[...] ETC-literatura, saiakera

Koadro klasikoa zen, emakume gazte batena; neskak arropa dotorea zeraman jantzita, eta eserita zegoen; haren eskuinaldean, egurrezko gurpil bat zegoen, garai batean **ardazketan** egiteko erabiltzen zena baino zertxobait handiagoa; lurrean palmondo hosto bat ageri zen; eta eskuartean, ezpata bat zeukan, musika tresna edo ume bat balitz moduan besarkatzen zuena. ETC-literatura, saiakera

Bestalde, josketan, **ardazketan** eta jantzigintzan trebatu zituzten, norberaren kontsumorako eta instituzioaren mantenurako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Cavendish-ek idatzitako poesia konparatu zuen jostearekin eta poesia deskribatu zuen buruko **ardazketa** bezala. ETC-entziklopedia

---

ardazkide *(corpusean ez dago; ETCn 119 agerraldi)* **1** *izond* beste baten simetria-ardatz bera duena; bi eroale zentrokidez osatua dena.

Horrez gain, modelo batzuek memoria txartelak (CF I/II, MMC, SD, MS, XD) irakurtzeko gailua dute, VGA, S-Video, AV, irteera digital optiko eta **ardazkidea** eta USB 2.0

konexioak dituzte, hau da, ordenagailura eta telebistara konektatzeko ez daukate inolako arazorik. ETC-prentsa

Kanpoko obran, seinaleak jartzen eta loratetegiak ipintzen bukatzen gabiltza, eta falta den elementu garrantzitsu bakarra aipatutako biribilgunea da, Telefonicaren **ardazkide** batekin zailtasun batzuk ditugulako. ETC-prentsa

Edozein modutan, normala da interneten sarbidea duten sareak hibridoak izatea, hau da, Sare Optiko Pasiboa zati bat izatea eta erabiltzailearen zatia koaxiala edo **ardazkidea** izatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zizaila puruaren prozesuan (A), deformazio **ardazkidea** edo ez-birakaria dagoenean, X eta Z deformazio nagusien orientazioak ez dira aldatzen deformatzean. ETC-zientzia, zuzenbidea

9-16 IRUDIA M masa, h altuera eta R erradioa dituen zilindro trinko batek bere simetria-ardatzarekiko duen inertzia-momentua kalkulatzeko, zilindro hori zilindro huts **ardazkidetan** bananduko dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Diseinu **ardazkideak** osatzen dituzte, ardatz nagusia aldapan behera iparralderantz, itsasorantz, doala, eta beste hormekiko angelu zuzenak osatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Komunikazioa garraiatuko duen bitarteko fisikoen ezaugarriak definitzea: pare bihurrituak, RS-232 RS232 estandarra, **ardazkidea**, airea, zuntz optikoa... ETC-entziklopedia

2 *kable ardazkide* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Kable ardazkidea bi eroale elektriko eroale zentrokidez osatutako kablea da. Erdiko eroalea edo nukleoa, kobrezko hari solidoz egina dago, geruza isolatzaile elektriko isolatzaile batez inguratua. ETC-entziklopedia

Dagoeneko hondartzan lurperatuta dagoen kutxatila batetik abiatuko da zuntza AEBetarantz: orain arte, **kable ardazkide** bat egon da bertan. ETC-prentsa

Kable ardazkide baten zorroak 2 mm-ko barne-erradioa eta 4 mm-ko kanpo-erradioa ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

ardazle *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)* *iz* irulea, ehungilea.

Adibidez, egia al den gurean hainbeste direla fededun kristau-katolikoak erlijioa bizimoduaren **ardazle** izatearen zentzuan, bederen, fedearekin baino estatusarekin eta bestelako identitate ezaugarri batzuekin lotuago ikusten baititut ikastetxe erlijiosoetako matrikulazioak edota bataio-jaunartze-ezkontza errituak. ETC-prentsa

Atauneko desagertutako Luzpeltz baserrian **ardazle** talde handi bat elkartzen zen gauetan. [...] Neska iturrira zihoan bitartean gainontzeko **ardazleak** ilargipean baserriko atarian urduri noizean behin "nondik zoaz?" galdetzen zioten. [...] Halako batean haize bolada batek gogor jo zuen baserriko ataria **ardazleak** izutuz, eztarriko ahotsa batek zera zioen arabera. ETC-entziklopedia

---

ardaztu, ardazten *(ETCn **881** agerraldi, horietatik **582** azken sei urteetan)* da/du *ad* ardatz gertatu; ardatz izan; ardatz gisa erabili.

Gaurkotasun handiko gai baten inguruan **ardazten** da nobela grafikoa, ezkontza homosexualaren inguruan alegia. Berria - Kultura

Frantziskok bere erregelak idazten dituen garaian, oraindik ez da bizitza erlijiosoaren teologia hiru botoetan **ardazten**. Askoren artean

Horregatik, euskal kultura diogunean euskararen inguruan **ardazten** den kulturaz ari gara. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bestelako Komunikazioaren garapenean, informazioaren hartzailea ere lore bat da, komunikazio katearen subjektu kritiko berria, zeinaren inguruan **ardazten** den prozesu osoa. Txema Ramirez de la Piscina

Orain arte arimaren izatasun adierazkorra **ardazten** deneko poloetako bakarrari kontu egin zaio: in actu existitzen den gorputzaren ideiarenari. Piarres Xarriton

Zure liburua Ipar Euskal Herriko historian **ardaztua** dago. Berria - Euskal Herria

Vajkay senar-emazteen bizitza osoa neskazaharraren inguruan **ardaztuta** dago, eta Hegatxabalen behin-behineko ausentziak aldaketa kasik sumaezinak baina, azken batean, funtsezkoak ekarriko ditu zaharren bizitzan. Berria - Kultura

Garabi-besoak, goi muturrean eskegita, ildo biko gurpiltxoa zeukan, erraz jira-bira eragiteko moduan **ardaztua**; gurpilaren ildoetan sarturik soka bi ziren. Edorta Jimenez

Albertorekikoa beste tankera bateko adiskidetasuna izan zen, musikan **ardaztua**; ikaskide gehienei gustatzen ez zitzaizkien talde ingeles "arraroen" musikan, gainera. Iban Zaldua

Elkartasunean **ardazturiko** kooperatibismoa ez da sozialismorako bidea bakarrik, baita sozialismoan behar den jokabidea ere. Iñaki Heras

Halakoxeak omen ziren ez hain aspaldiko haiek, ordubetearen jiran, Aste Santuko arratsetan, eliza ilunduan, kortinak ere botata, santuak zapi morez tapatuta, ezeri begiratu ezinik, erreparo guztia hantxe ikara eta izutan **ardaztuta** joaten zenean: purgatorioa azkar noziaraztearen bentajak izango ahal ziren haiek! Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **inguruan ardazten da** (3)

---

ardi *(ETCn **15.128** agerraldi)* **1** *iz* ugaztun hausnarkaria, iletsua, eskuarki talde handietan zaintzen dena.

Ardiak, **ardiak**...! esan zuen Kakok; haiek gu baino hobeto bizi dituk ze, gu beti ezean bizi baikara, eta **ardiak**, berriz, hezetik hezera! Pablo Sastre

Ardien ekimenak ari gara ikusten, Dutertre eta biok. Josu Zabaleta

Baina gero Dolly ardia atera zuten laborategi batean, beste **ardi** baten kide, beste **ardi** baten klona, beste **ardi** baten ispilu bizia. Pello Salaburu

4 **Ardien** eta ahuntzen artegiak behar bezain handiak egin behar dira, alegia, abelburu bakoitzak izan dezala ez lau oin eta erdi baino gutxiagoko azalera, eta ezta sei oin baino handiagoa ere. Santiago Iruretagoiena

Jainkoaren deiari erantzunez, batzartu ziren **ardiak**, otsoak, zaldiak eta behorrak, lehoiak eta tigreak, zakurra eta katua, behiak eta ahuntzak, eta gainerako abere jende guztia... trikua izan ezik. Jokin Urain

Ondoan, arditegi berria, modernoa, hiru lau ehun **ardi** aise aterbetuko dituena, bazkatuko dituelarik neguminean artzainak eta deitziko oraiko tekniken arabera. Piarres Aintziart

Ardiak alatzen diren zelai gorrixka baten gainean trenkatzen dira mendiko gailurreriaren itzal zabalak. Koldo Izagirre

Ez zien estimazio handirik gure artzainak: Urtarrilean tximeleta ikusi baino, otsoa **ardi** jaten ikusi nahiago. Pello Zabala

Gogoko zituen behiak eta **ardiak**; halere, **ardiak** ergel samarrak zirela esan ohi zuen. Mirentxu Larrañaga

Beste muturrean, **ardiaren** ileak 93 ºC-rainoko tenperatura irits dezake kanpotik tropikoetako eguzkipean, eta, aldi berean, fresko du barrualdea. Irene Aldasoro

Aurreko hanketatik heldu eta itxitura batean sartu du **ardia**. Itziar Otegi

Hamabi **ardi**, zortzi zerri eta bi idi hil zituen Altzinook haientzat. Juan Kruz Igerabide

Ardiak inguru haietan ibiltzen zituen artzaina zekarten gidari. Koldo Izagirre

Ardi gainean ibiltzen jakingo duk hik. Bernardo Atxaga

Ez didate askotan eskatzen, baina ez daukat inolako arazorik, ze umetan **ardi** artean hazi nintzen, nire aita artzaina izan zen eta. Jon Arretxe

Ardiak ugalduz joango dira eta oso artalde ederra osatuko dute. Patxi Zubizarreta

Ahmet bere zaldi gainean ibiltzen zen maiz eta, adiskideak berarekin eramanda, Irango lurretan sartzen zen, gero Araratera bueltan **ardiak**, moxalak eta denetik ekartzeko. Fernando Rey

Beste hainbeste egingo luke artaldeko beste edozein **ardirengatik** ere. Joxerra Garzia

Eta **ardi** horiek material mekanikozko zalaparta hots izugarri batean doaz. Josu Zabaleta

Halaxe da: lizar-bardak kimatu gabe gordetzen zituzten, gero neguan ahuntz eta **ardiei** emateko. Pello Zabala

Denera, bost bat **ardi** eta ahuntzen bat edo beste akabatu ditu 280 kiloko hartz ar horrek. Joxerra Garzia

Aski luze, ibiltaria **ardiei** begira gelditzen da -zein erraz aurkitzen duten belarrik ziztrinena!-, eta ondorenean goraka egiten du arin. Bernardo Atxaga

Maldan beherari ekin ziotenean Bran agertu zen, zopa eginda eta arnasestuka, **ardien** atzetik korrika ibiltzeaz nekatu antzean. Joanes Urkixo

Gero, **ardi** bati bezala moztu zidan ilea, eta ez nintzen Jian ikustera joan. Juan Kruz Igerabide

Sarri, gizakiak bi taldetan banatzen ditugu: artzainak eta **ardiak**. Jenaro Garate

Katarsi baten bidez, noski, **ardiak** otsoa maite behar duen antzera, naturak erakutsitakoaren aurka. Hasier Etxeberria

Ardi bat baino gehiago galdu dut arroiletan lepoa hautsita, edo katamotzak begiak erauzita. Javi Cillero

Jarraian, **ardiak** eta ahuntzak jeizten hasi zen, banan-banan; bakoitzarena amaiturik, arkume edo antxume jaioberri bat jartzen zion azpian. Juan Kruz Igerabide

Orain behiz eta **ardiz** beteriko landak ari ziren ziztu bizian igarotzen. Iñaki Mendiguren

Neskatxa, **ardi** baten gisara hartua izan nahi ez, eta inondik ere ez zegoen prest amore emateko harik eta borrokarako grina asetzen zuen arte. Patxi Zubizarreta

-Badakizu **ardiarena** egiten? -erantzun zioten telefonoaren beste aldetik. Jon Arretxe

Azkeneko Eguberrietan, hartu zian **ardi** bat lepoan, eta hamar egun pasatu zitian mozkor-mozkor eginda. Koro Navarro

-Argisentian nentorrelarik nire **ardiekin**, negarra ikusi dizut begietan. Anjel Lertxundi

Azken hiru bagoiak hilzorian diren **ardiz** beteak daude... gosearen gosez ilea hozkaka kendu diote elkarri! Fernando Rey

Eta Xalbadorrek gibela eta gibela egiten zuen, begiak **ardi** batenak iduri, harik eta, halako batean, zango bat belaunikatu, bertzea aitzinatu, eta erdi nigarrez erdi totelka erran zion arte: Joan Mari Irigoien

Aberatsak **ardi** eta behi asko zituen. Jose Antonio Mujika

Zaldiak eta behorrak arbolapeetan gorderik, behiak belar gainean etzanik, soilik **ardiek** jarraitzen zuten bazkan, ezer gertatuko ez balitz bezala. Hasier Etxeberria

-Daukadan gurin guztia salduta, **ardi** bat erosiko dut eta artzain bati emango diot zain dezan. Patxi Zubizarreta

-Denborarekin ikasiko duk - jakinarazi zidan -, astemeak, behorrak, behiak, ahuntzak eta **ardiak** zeinen esker onekoak diren.

Amaiurko Iriartea baserrian **ardiak** eta behiak deizten, hantxe egongo zen kokoriko, eserlekua eskumenean eduki arren. Gotzon Garate

Begien bistakoa da natura eta kultura elkartu eta gainditzen dituela: gasna biribil berde bi munduratzekotan, **ardia** eta pentoka behar dira, baina orobat giza ekina eta esku ahurretako mina. Markos Zapiain

Ardi bat eta bere bildotsa ebatsiak zituen Uharteko jaunaren lurretan. Aingeru Epaltza

Ahaztu gabe **ardi** oro, **ardi** bakoitza artzain dela: bere eta **ardi** hurkoen artzain. Jenaro Garate

Ordubete igaro eta gero ere, lotuta jarraitzen dute **ardiek**, oraindik ere negar-marraka. Oskar Arana

Jan eta gero, burusiak lurrean zabaldu genituen, lotarako, eta elkarren kontra estutu ginen, **ardiak** itxituran bezala. Juan Kruz Igerabide

Baina otsoa ez zegoen **ardi** bihurtuta. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondoekin)

Ardi kuttuna ere bazian gainera. Aitor Arana

Gisa horretan ditu Frantziako Estatuak bere etsai bortitzenak hautsi nahi, heien nortasuna errautsaraziz, otso basak **ardi** maltso bilakarazi nahiz. Filipe Bidart

Aldi berean lasaigarri eta harrobide, bete-betean asmatu baitzuen, han ikusi zuen orratza ostera zeroraino igotzen, eskortara itzultzen den **ardi** deslai bat bezala, eta gero atzera otzan-otzan hutsaren aldera lerratzen. Juan Garzia

Ni, lehen, udaberriko gau izartsu eta epeletan, heroina hartu eta terrazan etzanda egoten nintzen, **ardi** zahar bat bezala. Pako Aristi

Motibo kuttunena ardiak ziren: **ardi** melankoliatsuak, bisitariei ganbarako paretetaik aurpegikera galdetzailez, begi hustu eta urtsuz begiratzen zietenak. Xabier Olarra

Burumakur zeuden magrebiarrek **ardi** beldurtiak ziruditen, oilar frantses harroak gobernatzen zuen ukuiluan. Unai Iturriaga

Animaliei dagokienez, Noeren ontzia hondoratzen du gerlak, piztiategi ezin ankerragoa margotuz: mando eta idi hanpatuak, begi-ninia ilea bezain zuri duten **ardi** hilak, zerri harrek erdi janak, zaldi zatituak. Markos Zapiain

Besteak **ardi** ergelak bezala begira gelditu zaizkit. Alberto Barandiaren

Bertara hurbiltzenago, hiri-kanpoko bihitegiak, ferratzailearen estalgunea, **ardi** triskilatu berrien eskorta nabarmenagotzen hasi zen Nora zeru urretsuaren kontra. Anjel Lertxundi

Euskaltzaindia ez, baina bai ordea Dolly **ardi** famatua: egun horretan, Eguzkitza sarrera hitzaldia irakurtzen ari zelarik, bete zituen zorioneko bost urte gure Dolly zorioneko **ardi** zoriontsuak. Pello Salaburu

Zeren sarritan **ardi** iletsuak, muino batean larre gozoa bazkatuz, mantxo ibili ohi dira, ihintz berriz perlaturiko belarren dei eta gonbiten arabera,; bildots asetuek, berriz, jolasean eta ikotika leunean dihardute. Xabier Amuriza

Abere-gorpuz ihaurriak zeuden larre-bazterrak, eta **ardi** larrutuak ageri ziren han-hemenka, aho-muturrak zerurantz zabaldurik hilak, saihetsak nabarmendurik. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Suaren ke usaina, euriak zanpatu larruena, etxe barnekoak eta **ardi**-troparen tepoa denak juntatu ziren Graxi oroitzapenen zurrunbiloan gatibatzeko. Itxaro Borda

Erantzunek "omen", "nonbait", "ei" eta, orokorrean, litezkeen modulatzaile guztiak eramaten zituzten, **ardi**-jabeak segurtasun osoz deus jakingo ez balu bezala. Jon Alonso

Ontzia puskatan egin eta egurra **ardi** kortak egin eta larreak hesitzeko bidali ei zuen Eskoziara. Harkaitz Cano

Mundu Gerraren egoerari gagozkiolarik, honezkero Karibe aldeko urak ez dira otso-talde modura biltzen izan diren U-itsaspeko haien ehiza libreko **ardi**-zelaia. Edorta Jimenez

Ardiekin, ordea, eskoziar ikertzaile batzuek jakitera eman berri dute lortu dutela halakorik: **ardi**-arrautza gunegabetu batean **ardi**-errapeko zelula baten gunea txertatu, eta bildotsak sortu dira. Juan Garzia

Artzainak **ardi** izterra zeukan eskuan, ziri batean trebestua. Koldo Izagirre

Ardi bulunbak entzuten hasi dira, larreak eskuin eta oso hurbil dituztelako seinale. Pello Lizarralde

Maite duxu **ardi** gasna? Janbattitt Dirassar

Gobernu frantsesaren hilabete saria, bi solairuko etxea, lur sail bat, bi behi, **ardi** buru bat edo beste eta oilo gutxi batzuk; horratx haren aitaren ondasun guztiak. Patxi Zubizarreta

Nirekin ari zen mutilak txakurtegi deitu zuena, berriz, ez zen **ardi**-txabola erdi erori bat baino: bertan, drogazale hura bizi zen, hiruzpalau txakurrekin. Anjel Lertxundi

Egun batean, Kainek lurreko fruituen eskaintza egin zion Jaunari eta Abelek, bere aldetik, artaldeko lehen bildotsak eta **ardi**-gantzak eskaini zituen. Jose Antonio Mujika

4 ***ardi-azienda***

Rieti probintzian, izurrite oso larria zabaldu zen, behi- eta **ardi-azienda** guztiak krudelki garbitzen ari zena, eta ez zen erremediorik ikusten. Askoren artean

5 ***ardi-belar*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Ardi-belar edo arkakuso-plantain ("Plantago psyllium") plantaginazeoen familiako urtebeteko edo gehiagoko bizitza duen belar landarea da. ETC-entziklopedia

Beste izen batzuk dira: batana, astamenda, astobatana, kukusobelarra, mendeza, txortaloa, **ardi-belarra** edo erraldo-belarra. ETC-entziklopedia

6 ***ardi beltz*** familia edo taldearen ortodoxiatik bereizten den kidea.

Eta halatan zen gure etxeko **ardi beltz** hura bi aldiz maradikatua: lehenik, protestant izan zelako, eta, bigarrenik, bere buruaz bertze egin zuelako. Joan Mari Irigoien

Zein familiak ez dik **"ardi beltzik"**? Jon Muñoz

Ez dakit jakinaren gainean egongo zaren, baina nire seme dontsu hau betidanik izan dugu familiako **ardi beltza**. Mirentxu Larrañaga

Bera jaio zenean ibilera kolonial guztien ordaina egokitu omen zitzaion berari, Louiseri, eta hazten joan zen neurrian, gero eta argiago ikusi ei zuen **ardi beltza** zela bera, artalde zurian. Hasier Etxeberria

Artaldeko **ardi beltza** izanen omen da Frantzia ezak irabazten balinbadu maiatzaren 29-an. Herria

Esnaolak aitortu du ez zela erraza Madrilen egotea, «beti izan gara **ardi beltzak**», adierazi dio Berriari. Berria - Euskal Herria

Milaka **ardi beltz** konbertituko dituzulako. Joan Mari Irigoien

7 *ardi beltza bilatzeko gau*

-Bai, adiskideak, horratx, akabo begiyak, akabo dena, **ardi beltza bilatzeko gaua**, besterik ez. Itziar Otegi

8 *ardi daldara* ardien gaitz baten izena.

Zientifikoki frogatzen ahal da orai erresistentzia sar-arazten den ber ardi tropetan, ardi **daldara** ez dela hedatzen axurier. Herria

Ardi **daldararen** kozatzea gelditzen dela ardiaren "ondokoan" (placenta), eritarzünaren herexa desagertzen beita. Herria

9 *ardi errebelatu*

Han nengoan, goxoki, ba lo, ez lo; karkulatzen ari nintzela, nagusiari gezurra sakatuko niola... **ardi errebelatuaren** ondotik luzaz ibili nintzela, edo horrelako zerbait. Daniel Landart

Ahatik, Izraelgo **ardi "errebelatuaren** " kezka ukan badu ere, ez ditu bertze jende eta populuak baztertu, erromano, samaritano etab... Herria

Halaber, Jainkoaren grazia inoiz baino lanpetuago ibili zen gure erresuman, **ardi errebelatuak** Satanen atzapar papistei kentzen. Aingeru Epaltza

10 *ardi-esne*

" **Ardi-esneak** iazko salneurri bera du, txerriaren salneurria kostua baino baxuagoa da, gasolioak gora egingo du.. Berria - Ekonomia

Bereziki **ardi esnedunak** hazten dituzte baserrian, baita zenbait haragitako behi ere. Berria - Harian

1917 laborari ba dira **ardi esnea** egiten dutenak, hogeitasei gutiago, parean esne kopurua ehuneko hamarrez emendatu delarik. Herria

Gasna bila hozkailua miazkatu nuen, eta **ardi esnez** ekoitzi hiruki lainoa han zegoen noski, ene aiduru. Itxaro Borda

Hogeita lau orduan bi aldiz, ahuntz heste puska bat botatzen zieten, ikatz gainean errea, edo **ardi esne** garratzez egindako krut gazta pixka bat, zeinarekin kumis izeneko platera prestatzen duten kirgizek, behor esnetan beratzen ipinita. Karlos Zabala

Izan dadila Kolonian nahi dutena, eta egin bezate ume horretatik germaniar handi eta gorri bat, nola **ardi-esnetik** mamia. Hasier Etxeberria

behi-gaztanbera eta **ardi-esnea**, bildots gizenen haragia, aukerako ahariak eta akerrak, ogi-irin garbi bikaina eman zizkion janari eta ardoa, mahats-odola, edari. Elizen arteko biblia

11 *ardi galdu* ardi beltza.

Ardi galduaren antzo desbideratu nintzen (Sal. Imanol Unzurrunzaga

Joanes, ni protestant nauk, etxeko **ardi galdu** hura bezala. Joan Mari Irigoien

Ordena utzi dutenei, ez biezaie bihotz errukitsua itxi, **ardi galduei** bezala, jakinik zein indartsuak diren horrelako erorketak eragiten dituzten tentaldiak. Askoren artean

Eta etxeko **ardi galdua** ikusten baduk, emaizkiok goraintziak neure partetik. Joan Mari Irigoien

Baina Jazintok bizimodu loturik nahi ez, nonbait: ez **ardi galdua** bezala, beti sasi berean kantari nahi ez duen zozoa lez baizik. Koldo Izagirre

Adinarekin, umeekin eta dibortzioekin, koadrila ez da izaten koadrilaren hondarra baino, eta ezin zorrotzegi portatu **ardi galduekin**. Iban Zaldua

Ardi beltza, bertze ardiek begietan daukatena, baztertua, zokoratua, izurritea balu bezala, arnegata, iluna bertze guziak hain xuri direlarik, halere ez **ardi galdua**. Herria

12 *ardi gazta*

-Nik bai tankera txarra hartu: iritsi zenean, hirurogeita hamalau kilo pisatzen zuen **ardi-gaztaren** kaxak; eta nik hirurogeita hamabost kilo neuzkan eskatuta. Anton Garikano

Aguakate eta saltsifiekin entsalada prestatua zuen, eta gero udaberriko biribilkiak atera zituen, eta alberjiniak, irin-arrautzetan bildu eta binaka frijituak, tartean **ardi-gazta** xerra ipinita; postrerako, aran-pasak atera zituen, gurinezko eta kokozko ore batez beteak, gainetik txokolate beroarekin. Juan Kruz Igerabide

Nire mendeku tikia eskutik zintzilika nekarren: mertxikak, meloia, ilar zuriak, **ardi-gazta**, oilasko-izterrak. Aingeru Epaltza

Niri behintzat horixe eman zidan nire andere Dulzineak, istegiko pareta-gainetik; eta, **ardi gazta** zen izan ere, garbi esateko. Patxi Ezkiaga

Abiadore haiei egin zaizkien elkarrizketetan bada beti agertzen den oroitzapena, gau osoa mendian barrena oinez, hotzak eta beldurrez eman ondoren muga zeharkatu eta Sarobe baserrian jaten zutena: ardo beltz ona, tortilla zoragarriak eta **ardi gazta** ketua. Pako Aristi

13 *ardi gorotz*

Berriki **ardi gorotza** biltzen ari zen familia osoa atzeman zuen Iratin. Berria - Euskal Herria

14 *ardi ile*

Bizi gireno, izanen da holako eta hobe! Dena den, **ardi ile** mozteak hasiak dira, ba eskuz eta tresnez xoko gehienetan! Herria

Egitarauan: nekazaritza ekologikoaz hitzaldi, artisauen erakusketa, **ardi ile**-moxte xapelgoa, artzain xakur xapelketa, Irunberriko arroilan gaindi ibilaldi, arno ekologikoaren jastatze, dantza eta abar... Herria

15 *ardi jende*

" **Ardi jendea**, adituta nagok, bai... ". Pablo Sastre

16 *ardi kontu* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Ardi kontua soilik izan dadila. ETC-prentsa

Baziren aurrekoan ikusi nituen bezala emakume batzuk arropa garbitzen, baina orduan etzen umerik jolasian eta jolasa egiten duten umiak eskolan egongo ziren eta beste ume edo mutiko batzuk larrian **ardi kontu** zebiltzan. ETC-literatura, saiakera

Ardi kontuak alde batera utzi eta, beste argibide finagoa izan liteke, beharbada, oihanpe ilun haietan, aurren aurreneko lur lantzeak irudikatzea. ETC-literatura, saiakera

17 *ardi-larru*

Gau hartan horixe egin zuen Jainkoak: **ardi-larrua** bakarrik gelditu zen lehor eta inguruko lur osoan ihintza egin zuen. Elizen arteko biblia

Ardi larruz jantzitako otsoa dirudi. Berria - Kirola

Halaber erakusten zituzten saltzeko zituzten **ardi larruzko** xamarrak, abarkak, makilak, abere joareak, tabako zakutxoak, ganibetak... Elena Touyarou

Pablok hiru **ardi larruren** azpian egiten du lo. Pablo Sastre

Den-denak ez ziren, ordea, halako kalitatekoak; baziren, orobat, **ardi-larruz** egindako azalak, makina bat liburuzale, hala ere, pozez gainezka uzteko aski izango zirenak. Jon Muñoz

Ardiaren ilearen antzekoa duk eta, hortik gaztelaniaz ematen dioten izena, belloia; **ardi larrua**, alegia. Edorta Jimenez

Geroago idazkaria kontratatzeko erabakia hartua zuenez, lehen gela bat eraikiarazi zuen azulejoz eta **ardi-larruzko** besaulkiez, garai hartan ohi zenez, erdian mahai bat zuela aldizkari eta egunkariekin eta bere bulegoko atetik gertu. Bego Montorio

Atarte zabaletik sartu eta, barruan, **ardi larruzkoa** ematen duen alfonbra zuria zapalduz sartu gara salara; hirurogei ardilarru lotuko ziren gutxienez hain zabala egiteko. Joseba Sarrionandia

Nire arerio bat zebilen han tarteko ahalegin bizian, **ardi-larruz** jantzita, azeriaren maltzurkeriaz otsoaren amorrua ezkutatzen zuen bat. Askoren artean

Herenegun **ardi-larruz** janzten zen; kaiku edo brusa bat soinean zuela ikusiko zenuen atzo; gaur txandal batekin dabil. Anjel Lertxundi

Pergaminoak ez al dira **ardi-larruz** egiten? Juan Garzia

18 *ardi latx muturbeltz* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ardi latx muturbeltza edo ardi latx burubeltza Euskal herriko bertako ardi arraza bat da. Ardi latxaren bi mota daude, egun bi arraza ezberdintzat jotzen direnak, **ardi latx muturbeltza** eta ardi latx muturgorria. ETC-entziklopedia

19 *ardi latx muturgorri* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Ardi latx muturgorria edo ardi latx burugorria Euskal herriko bertako ardi arraza bat da. ETC-entziklopedia

Aurtengoa, gainera,? zoragarria? da, hark esatera.>>Etxaberengandik gertu, **ardi latx muturgorri**, muturbeltz eta aharien erakusketa eta lehiaketa izan zen Garagartza plazan. ETC-prentsa

Ardi latx muturgorriak dira Aitzartekoak. ETC-prentsa

20 *ardi latxa*

Aralar mendiaren pe hortan goizeko 10 etan hasiko da Eguna eta izanen da zer egin eta zer ikus: **ardi-latxen** sariketak, ardi-gasnen primak, ardi-moztaileenak eta tresnerien erakusketak, deizteko eta beste. Herria

Gure helburua gazta gehiago ekoiztea da, eta hori **ardi latxa** gehiagorekin lortzen baldin badugu, ederki, baina bestela, arraza berriekin saiatu beharko dugu. Berria - Ekonomia

Espeleologian edo **ardi latxekin** artzaintzan dihardutenentzat ere Lezek duen garrantzia azpimarratu dute. Berria - Euskal Herria

21 *ardi manex*

Une aski zaila egon ohi den artzainen kantuaren joko zatian ere ez zen arazorik batere izan, **ardi manex** burubeltz saldoa oholtzara igoaraztekoÉ eta han gerarazteko! Egia da artzain helduak badaezpada oihal atzean zeudela, zerbait gertatuko bazen ere, baina ez zuten agertzeko beharrik izan. Berria - Kultura

Erranen bai halere: zer kabala arraroa atera den, bai behietan, bai **ardi manex** buru-beltz ala buru-gorrietan eta bai ere zaldietan. Herria

Besteak beste bada preseski erreportaia nasai eta interesgarri bat **ardi manex** buru gorriez eta buru beltxez. Herria

22 *ardi manex burubeltz*

Une aski zaila egon ohi den artzainen kantuaren joko zatian ere ez zen arazorik batere izan, **ardi manex burubeltz** saldoa oholtzara igoaraztekoÉ eta han gerarazteko! Egia da artzain helduak badaezpada oihal atzean zeudela, zerbait gertatuko bazen ere, baina ez zuten agertzeko beharrik izan. Berria - Kultura

23 *ardi manex burugorri* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ardi manex burugorri edo ardi manex burubeltzaren esnez egindakoa, gertuko Ossau-Iratik ez bezala ez du jatorrizko Izendapenik. ETC-entziklopedia

Ardi manex burugorri, ardi manex burubeltz eta ardi euskal-bearnoar ardiek ematen duten esnearekin egiten da gazta hau. Pasta prentsatuko gazta da, eta bere azala kolore laranja edo horia du. ETC-entziklopedia

24 *ardi merino*

Adibidez, Los Remedios deitu campoan **ardi merinoak** (Rambouillet arrazakoak) Frantziatik ekararaziak zituzten. Herria

25 *ardi-mihi* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Ardi-mihia ("Valerianella locusta" (Linnaeus) edo "Valerianella olitoria" (Moench)) Balerianazeo Valerianaceae familiako landare belarkara da. Entsaladaren osagarri modura erabiltzen da, eta Euskal Herrian gero eta ezagunagoa da. ETC-entziklopedia

Ondoren, "barazkiak nahasten eta entsalada garatuagoak lortzen" hasi ziren, eta kontsumo usadio berriak errotu ziren: "Kontsumitzaileari entsalada prestatuak proposatu genizkion, atsegingarriagoak, kimu samurrekin: **ardi-mihiak**, errukula, letxuga kimuak...", dio Aldazek. ETC-prentsa

Gue aitak aipatu nau maiz belar ardi-mia 'gure aitak aipatu dit maiz belar **ardi-mihia'**. ETC-zientzia, zuzenbidea

26 *ardi-moztaile*

Aralar mendiaren pe hortan goizeko 10 etan hasiko da Eguna eta izanen da zer egin eta zer ikus: ardi-latxen sariketak, ardi-gasnen primak, **ardi-moztaileenak** eta tresnerien erakusketak, deizteko eta beste. Herria

27 *ardi-mozte*

Joanden urtean arrakasta handia ukan zuen eta aurtengo ere programa ez dago txarragoa, zeren **ardi mozte** zoingehiagoka ere izanen baita gainerat eta haixturrekin bixtan dena. Herria

Asteartea -Goizean Jauregiko zelaian **ardi mozte** lehiaketa. Herria

28 *ardi-moztu*

Ez da neri aipatzea bainan badakit serioski segituko dutela, nun ez diren bezperan **ardi mozten** artzen! . Herria

Ardi moxte desafioan, hau taldeka izanen da, talde bakotx hiru artzain; artzain bakotx hiru **ardi mozteko**. Herria

Basamortuan zebilelarik, entzun zuen Davidek Nabal **ardi-mozten** ari zela. Elizen arteko biblia

Tamarri esan zioten aitaginarreba **ardi-moztera** zihoala Timnara. Elizen arteko biblia

29 *ardi-txakur* *(orobat arditxakur eta artxakur)* ardiak zaintzeko erabiltzen den txakur mota. ik **ardizakur**.

Zazpi pitbull eta bi **ardi-txakur** aleman ziren, denak haginkadekin. Gotzon Garate

Egia zen halaber giza etxabere batek, giza artzain osmanliarrak giza **ardi-txakur** izateko heziak, bere talentuentzat are karrera distiratsuagoa aurkitzen zuela. Iñaki Mendiguren

Lehiaketaz gain, egun osoko jaia prestatu zuten: txondorra, artisautza erakusketa, **ardi-txakur** erakusketa, belarra segadoraz ebakitzea idiekin, herri bazkaria eta musika. Berria - Kirola

"Orain, ordea, barre egiten didate ni baino gazteagoek, nahiz eta berauen gurasoei ez nien gai iritziko neure **arditxakurrekin** nahasteko ere. Elizen arteko biblia

Bide horretan, hainbat ekitaldi ditugu: hitzaldi zikloak, argitalpenak, **arditxakurren** txapelketa... Makina bat aldiz jostatuak ginen gu **artxakurrak** hara sarrarazten. Berria - Kultura

"Ttotto" eta "Augi" bi euskal **artxakurren** arrastorik ez dago argazkian norabait parrandan joanak... Txillardegi

30 *ardi zahar*

Baina **ardi zaharrak**, zakurra aspaldidanik ezagutzen dutenak, atseginez egoten dira, akain asko izaten baitituzte. Gotzon Garate

Hondarraren gainean ohitutakoak ziren, belar ziztrinez lurrindutako ur beroa besterik ez zuten hartzen egun osoan, eta ilunabarrean aski zuten haiek **ardi zahar** pusketa urri batzuekin, oso gerlari onak ziren, loa ere labur egiten zuten. Koldo Izagirre

Zertaz egina zen? Atzarra edo **ardi zaharra** hil eta, haren haragiarekin egiten ziren salda eta tripotak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ni, lehen, udaberriko gau izartsu eta epeletan, heroina hartu eta terrazan etzanda egoten nintzen, **ardi zahar** bat bezala. Pako Aristi

31 *ardi zuri*

Eta haiek guztiak, Leireren biolinarekin liruraturik, **ardi zuri** bihurtu ziren bat-batean. Joan Mari Irigoien

Ongi oroitzen zen, hain zuzen ere orduren bat, ez zekien zein, jo zuenean goizean, pentsatu zuelako zelai berde, **ardi zuri** eta zeru urdinen harmoniaren osagarri ezinbestekoa zela kanpai hotsa. Ramon Saizarbitoria

Ardi horrek beltza dela esango du hasieran, baina beste ardiek otsotzat emanez eta denborarekin, ardi beltzak otsotzat hartzen du bere burua, **ardi zuriak** jaten hasteraino. Berria - Harian

32 *ardien dermatitis pustular* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ardien dermatitis pustularra edo ektima kutsakorra ardi eta ahuntzei erasaten dien gaixotasun biriko kutsakorra da, Parapoxvirus generoko birus batek eragina. ETC-entziklopedia

33 *Erronkariko ardi* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Erronkariko ardia gaur egun desagertutzat jotzen den Euskal Herriko bertako ardi arraza bat izan zen. ETC-entziklopedia

34 *ez ardi eta ez axuri*

Horregatik asmatu zuen honako esaera konpleto hau lotu zuenak: Ilbeltzak iten badau hil txuri, ardiek haziko dau axuri; Ilbeltzak iten badau hil beltz, **ez ardi eta ez axuri**. Pello Zabala

35 *Karrantzako ardi* *(corpusean ez dago; ETCn **57** agerraldi)*

Karrantzako ardia Euskal Herria Euskal Herriko bertako ardi mota bat da. ETC-entziklopedia

Abeltzainen kulturaren adierazgarri ederra dira paisaje hauek eta bertan bazkatzen duten aparteko arrazak: Pottoka behorrak, Montxina behiak eta **Karrantzako ardiak** eta astoak dira mundu bereizi honen jabe. ETC-prentsa

Eta **Karrantzako ardi** famatua ere hor da, ardi burubeltza, oso gazta goxoa egiten da haren esneaz, baina, zoritxarrez, desagertzeko zorian dago. ETC-prentsa

Ardi latxaren eta **Karrantzako ardiaren** artileak, kasurako, oso latzak dira. ETC-prentsa

Idiazabal gazta egiteko erabiltzen den esnearekin hazitako bildotsak dira, 3 eta 5 aste dituzte eta latxa eta **Karrantzako ardi** arrazetakoak dira. ETC-prentsa

Latxa eta **Karrantzako ardi** arrazetakoak dira, eta esnez soilik elikatu dira. ETC-prentsa

Ardi latxak eta **Karrantzako ardiak** dira; hots, euskal arraza autoktonoetakoak. ETC-prentsa

Izan ere, ardi latxen edo **Karrantzako ardien** bildotsak eta haien nahasketakoak dira; Euskal Herrian jaio, bizi eta hildakoak. ETC-prentsa

Karrantzako ardi beltzak, berriz, esnez beteriko ontzi bat du helduta, eta lasterketa bateko elastikoa darama jantzita erbiak, dortsal eta guzti. ETC-prentsa

Ardi latxaren edo **Karrantzako ardien** esne gordina hartu behar da, baita gatzagi naturala ere. ETC-prentsa

36 *Karrantzako ardi mutur gorri* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Karrantzako ardiak bi ekotipo dauzka. Karrantzako ardi muturbeltza **Karrantzako ardi mutur gorriaren** gertuko ardi ekotipoa da, baina bere kopurua askoz txikiagoa da, eta egun ardi mota hau desagertzeko zorian dago. ETC-entziklopedia

37 *Karrantzako ardi muturbeltz* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Karrantzako ardi muturbeltza Euskal Herriko bertako ardi arraza bat da. ETC-entziklopedia

Karrantzako ardi muturbeltzen artilearekin egindako txapela eta atorrak aurkeztu zituzten domekan, Balmasedako La Encartada museoan. ETC-prentsa

38 *Karrantzako ardi muturgorri* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Karrantzako ardi muturgorria Euskal Herriko bertako ardi arraza bat da. Bere banaketa eremua bereziki Bizkaiko Karrantza haranean kokatzen bada ere, ardi hauek Euskal Herriarekin mugakideak diren Kantabriako zenbait herrietan aurkitu daitezke ere. ETC-entziklopedia

39 *Lacaune ardi*

Orduan Nafarroako Gobernuak atzera bota zuen **lacaune ardia** jatorri izenenean sartzeko gaztagileek egindako eskaria. Berria - Ekonomia

40 *latxa ardi*

Gu **latxa ardiaren** defendatzaile sutsuak gara, baina Erronkari Gaztaren jatorrizko izena zabaldu nahi dugu, merkatu esparrua handitzeko, eta garaietara moldatzeko. Berria - Ekonomia

Latxa ardiaren alde lanean ari direnek beste arraza emankorragoak sartzeak eragingo lituzken arazoak azpimarratu dituzte. Berria - Ekonomia

Artzainak eta horien familiak izanen dira kaltetuenak, **latxa ardiek** ez baitute inolako baliorik izanen. Berria - Ekonomia

41 *manex ardi* *(corpusean ez dago; ETCn **37** agerraldi)*

Manex ardia Euskal Herriko bertako ardi mota bat da. ETC-entziklopedia

Manex ardiak Hegoalde ardi latxaren senide hurbilak dira. ETC-entziklopedia

3 Pantxika Pratek, Larruak dendako kreatzaileak jauntziak moldatu ditu, **manex ardien** larruarekin, Basandereen inguruan. ETC-prentsa

Donibane Garazin irekitako dendaz gain Alduden beste bat ireki; produktu biologikoak garatu, eta **manex ardi** arrazaren esnearekin soilik egin gasna bat ekoitzi. ETC-prentsa

42 *manex ardi burubeltz* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Manex ardi burubeltza Euskal Herriko bertako ardi arraza bat da. ETC-entziklopedia

43 *manex ardi burugorri* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Manex ardi burugorria Euskal Herriko bertako ardi arraza bat da, eta bi azpimota edo arraza ditu: **manex ardi burugorria** eta manex ardi burubeltza. ETC-entziklopedia

Manex ardi burubeltza manex ardiaren azpimotatzat jo izan da, beste azpimota **manex ardi burugorria** izanik, baina biak arraza bereizitzat jotzen dira gaur egun. ETC-entziklopedia

44 *nafar ardi arraza* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Erronkariko gazta egun desagertutzat jotzen den Erronkariko ardiari lotuta egon zen. Egun gazta mota hau latxa ardiaren zein **Nafar ardi arrazako** abereen esnearekin egiten da. ETC-entziklopedia

45 *piriniar ardi txakur* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Landetako labritak badauzka **piriniar ardi txakurrarekiko** zenbait ezberdintasun nabarmen. Lehena, esan bezala, tamaina. Landetakoa handiagoa da. ETC-entziklopedia

46 *piriniotar ardi txakur* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Piriniotar ardi txakurra Pirinioetako bertako ardi txakur arraza bat da. Arraza honen banaketa eremuak Euskal Pirinioak barruan hartzen ditu. ETC-entziklopedia

47 *rasa ardi* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Aurrerantzean, bertako arrazen esnearekin baizik ezingo da egin jatorri izena duen gazta, latxa (batik bat) eta **rasa ardien** esnearekin. ETC-prentsa

Historikoki latxa eta **rasa ardiekin** egin izan dute. ETC-prentsa

Egun, latxa eta **rasa ardien** esnearekin egindako gaztak izan dezake soilik izen hori. ETC-literatura, saiakera

48 *sasi ardi*

Ainhoar abeltzainen partetik baginituen: **sasi ardiak**, ardi mutur beltz eta mutur gorriak, exebehorrak eta pottokak. Herria

49 *txurra ardi* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Txurra ardia, Araban ere burda ardia bezala ezaguna, Euskal Herriko zein Gaztela eta Leongo bertako ardi arraza bat da. ETC-entziklopedia

Eskolako artaldean **txurra ardiak** eta merinoak dituzte. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aleman ardi (7); **ardi artean** (8); **ardi artean otsoa** (6); **ardi bat** (29); **ardi baten** (12); **ardi batzuk** (9); **ardi beltz** (14); **ardi beltz hura** (6); **ardi beltza** (43); **ardi beltzak** (11); **ardi buru** (6); **ardi edo** (11); **ardi esne** (13); **ardi esnea** (6); **ardi eta ahuntz** (5); **ardi eta behiekin** (6); **ardi galdu** (6); **ardi galdua** (13); **ardi galduak** (7); **ardi galduaren** (9); **ardi gasna** (76); **ardi gasna eta** (9); **ardi gasnaren** (10); **ardi guztiak** (7); **ardi hil** (10); **ardi larru** (6); **ardi larrua** (7); **ardi larruz** (17); **ardi larruzko** (5); **ardi mozketa** (5); **ardi moztera** (5); **ardi tropa** (5); **ardi ugari** (5); **ardi zakur** (13); **ardi zakurra** (8); **ardi zakurrak** (10); **behi eta ardi** (12); **bere ardi** (6); **beste ardi** (7); **bi ardi** (10); **ehun ardi** (7); **etxeko ardi** (14); **etxeko ardi beltza** (6); **gure ardi** (5); **gure etxeko ardi** (5); **herriko ardi** (6); **mila ardi** (12); **sei ardi** (5); **zenbat ardi** (5)

ardiak bezala (21); **ardiak eta behiak** (7); **ardiak lerro lerro** (5); **ardiak zaintzen** (11); **behiak eta ardiak** (7); **bere ardiak** (7); **gabeko ardiak bezala** (6); **neure ardiak** (5); **nire ardiak** (9)

---

ardiantxa *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* urtebeteko arkumea.

Ardien inguruan berba eta ele asko sortu izan ditugu haien adin eta sexuaren arabera. Besteak beste, ardia, aharia, arkumea, arkaztea, **ardiantxa**, bildotsa eta axuria dira ezagunenak euskaldunon artean. ETC-entziklopedia

---

ardibide *iz* ardiak ibiltzen diren bidea.

Piztiek bezala erregebidea utzi eta bortuko **ardibide** pikoak hartu zituzten. Aingeru Epaltza

---

ardiborda *iz* ardientzako borda.

Azkongarateko Hariztian zen belekabia, **ardiborda** baino honuntzaxeago, bidapean bertan, haritz amerikano baten galdurreko adartxokoan. Patziku Perurena

Baso iluneko sarobe izerdituak, larreko artzaitxabola isilduak, eguterako **ardiborda** itzalduak, udal mintegi antzutuak, belasoro zahartuak, barruti zakarrak hartuak, alor pinudituak, atari lokaztuak, usategi mututuak, ermita lotsatuak, etxe desesperatuak, burniola sorginduak, zubi alfertuak, gaztelu erotuak... Patziku Perurena

---

ardidun *iz* ardiak dituen artzaina.

Ardidunak haserre. Herria

Ordokian ala mendian zenbat den bizi ere ekarria da, baina interesgarriagoa da ikustea hiru **ardidunetarik** bi mendira badoatzila hilabete bat bederen urtean. Herria

Momentuan ba dirudi esne gutiago sartzen dela kanpotik honat, hala nola Aveyron aldetik, salmenten ttipitzea ez dutela oraino hemengo **ardidunek** sentitzen. Herria

Jakina denez sor marka hori ezin dute erakutsi Lacaune arrazako ardiak dituzten **ardidunek**; finkatua da ere deizte denboran ez zaiela ardiei" ensilage" bazka malgurik emanen, 2015 urtetik aitzina. Herria

Hartu bide hori nahi dute segitu **ardidunen** %-eko 52-k, beren ekoizpena emendatu nahi lukete %-eko 37-k,utzi gogo luketenak %-eko sei dira. Herria

---

ardiespen ik **erdiespen**.

---

ardietsi ik **erdietsi**.

---

ardiki 1 *iz* ardiaren haragia edo okela.

Hilabete honen ezagupidea ematerakoan, negurako zezina eta okela, zerriki, **ardiki** eta behikiak prestatzen, halaxe margotu izan da. Pello Zabala

Haur denboran etxekoek horrat igortzen ninduten **ardiki** erostera. Herria

Ondoren nahikoa **ardiki**, erreta, atera zuen Isidorak mahai gainera, patata frijituekin. Pako Aristi

Igandeetan hain zuzen ere, jaikitzen ginenean, arratsalde minean, **ardikia** jaten genuen. Itxaro Borda

Haur nintzenean ez zitzaidan **ardikia** laket eta luzaz mokofinarena egiten nuen denek errabiaz ahoratzen zuten hezur-kankail edo xungoaren aitzinean, Aiherrako zikiro besta batean, arrailduraren arrailduraz, oharkabean lau kostalet errerik irentsi nituen arte. Itxaro Borda

Surik ezaz, **ardikia** gordinik. Koldo Izagirre

Ardikia heldu eskuekin eta ahoratzen zuten, bai, baina patata frijituei inork ez heltzen. Pako Aristi

Adiskidearen ahaideak ELB sindikatuko kideak ziren eta lekuan lekuko mozkinen partez, Zeelanda Berriko **ardikia** erosten atzematen baldin bazuten, bere barrabaskeriaren jakinean egongo ziren hiru egun baino lehenago Barnealdea deitzen zen eremuko lau kantonamenduetako jendeak. Itxaro Borda

Haragiari erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan behikiak %3,6, **ardikiak** %4,6 txerrikiak %7,7 eta oilaskoa %9,9 garestitu ziren; Nafarroan behikiak igo ziren gehien (%4,5). Berria - Ekonomia

Proteina guztiak ez dira berdinak; jaten dugun **ardikiaren** edo txerrikiaren proteinak ez dira bere horretan giza proteinaren ordeko. Irene Aldasoro

Ardikiz elikatzen zarete, artilez janzten eta arkumerik ederrenak hiltzen dituzue, baina ez duzue artaldea zaintzen. Elizen arteko biblia

2 (hitz elkartuetan)

Eskuetan duen platerean, **ardiki**-xerra bi, ilintien artean erretako patata bat, arroz koilarakada bat haragi-saltsan, eta kalabaza-xerra bat. Oskar Arana

Tira, Petrusek eta bere gonbidatuek ez dituzte beren **ardiki**-xerrak albo batera utziko zuganako eta zure sentsibilitatearen alderako errespetuagatik. Oskar Arana

Ardiki peza erraldoia naka-naka irensteari ekin nion, deus ez bailitzan, haurrak triste jarraitzen zuen bitartean. Itxaro Borda

Asea nintzen eta jakin izan baldin banuen, nihaurek sabeleratuko nuen **ardiki** puska madarikatua oro, egin nuen xantaia zozo horretan galtzeko partez. Itxaro Borda

Lau haizeetara behatu zuen ikusteko **ardiki** ekoizle ezagunik inguruetan bazenez. Itxaro Borda

---

ardilarru *iz* ardiaren larrua.

Jaiki, ezpata bizkarrean hartu, eskuan azkon bat -zakurretatik eta gaizkileetatik babesteko-, estalki lodi bat jantzi -haizetik batesteko-, **ardilarru** bat hartu -gainean etzateko-, eta zerri arrak lo zeuden lekurantz joan zen, haitz baten azpira, Boreas haizetik babesturik. Juan Kruz Igerabide

Otsoa **ardilarruz** datorrela esan ohi dugu. Berria - Ekonomia

Ardilarruz estalirik, egin behar zuen bidaiaren nondik norakoak imajinatu zituen. Juan Kruz Igerabide

Motif hori berriro agertzen da Jasonen urrezko **ardilarrua** zaintzen zuen sugea gainditzen duenekoan eta Heraklesek egiten duen Zerberoren bahiketan. Iñaki Mendiguren

Plajiatzaileen izpiritutik urrun eta erromantizismoaren lekuan kokatzen dela, hots, lekurik irrazional, erlijiotsu, antihistoriko eta aristokratikoenean; bada, agian otso bat edukiko genuke **ardilarruaren** azpian, zinezko erreakzionario bat. Bernardo Atxaga

Liburu batekin itzuli zen, **ardilarru** ondu beltzez forratutako bi sofaren arteko mahaitxoan utzi zuena. Jon Alonso

---

ardit 1 *iz* balio gutxiko diru zaharra.

Txiroek bost xentimokoa ematen dute, lukurreroek **ardit** bat. Koldo Izagirre

Hirulaugarren aldia badut tartar berarekin natorrela, eta milagarrena banu ere, lepoa parako nuke, **ardit** baten kasorik egin ezetz inork. Patziku Perurena

Dena hartzen du ehiztariak, kobratzen du pezeta, hartzen du bost xentimokoa, eskertzen du **ardita**. Koldo Izagirre

Eta **arditak** burrustan isurtzen dira zuen sakeletara, ez? Itxaro Borda

Eskerrak Eusko Armadaren **ardit** altxorraren parte bat, nagusiaren baimenarekin, eraman zutela. Itxaro Borda

2 *arditik balio ez izan*

Galderek **ez dute arditik balio**. Anjel Lertxundi

Noski ene eskerrek, lagun maiteok, **ez dute arditik ere balio**. Juan Garzia

Zeren ene gihar-hezurrek ez baitzuten orduan, zin-zinez, **ardit bat ere balio**. Joan Mari Irigoien

3 *arditik ez eduki* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

-Arditik ere ez zaukaat, dirua behar diat -deitoratu zuen. ETC-literatura, saiakera

---

arditegi *iz* artegia.

Kortsikako **arditegi** batean hatxeman du poliziak Ivan Colonna, duela lau urte ta erdi hurbil, Claude Erignac prefeta hil zutenaz geroztik ihesi zena. Herria

Ardiak bidean lerroan zebiltzan gero, autoen pasaiak trabatuz eta pentze irekietan, belar berdez asetzeko, edo kartierreko **arditegietan** korbeetan behera dilindatzen zen soro ior nasaiaz bazkatzeko, trumilka sartuz. Itxaro Borda

Aditegiko izkinetik so egiten dudalarik ibarrari, beldurrak hartzen nau. Piarres Aintziart

Xaxkitoineko **arditegirat** argia helarazteko. Herria

Ondoan, **arditegi** berria, modernoa, hiru lau ehun ardi aise aterbetuko dituena, bazkatuko dituelarik neguminean artzainak eta deitziko oraiko tekniken arabera. Piarres Aintziart

---

arditu *izond* ardiaren ezaugarriak dituena.

Populu bakarra izanen gara geu mundu guztian, hain arlotetua eta hain **arditua**. Hasier Etxeberria

---

arditxakur ik **ardi 2**.

---

arditxo *iz adkor* ardi txikia.

Ahuntz eta aker mordoaren artean **arditxo** bat bakarra zegoen, apal eta lasai larrean. Askoren artean

Artzain ospetsua berehala jaiki eta **arditxo** gaixoari behar zuen erremedioa eramatera joan zen lasterka. Askoren artean

Eta San Frantziskok: "Zergatik etorri zara hona, anaia **arditxoa** ? Askoren artean

Artzain errukior eta arduratsuak, bere artaldea etengabe zaintzen zuenak, ikusi zuen **arditxoa** irenstera sartu zela otsoa. Askoren artean

Argi nazazu, maisu txit zuhur eta artzain txit errukitsu horrek, ni zure **arditxoa** bainaiz, merezi ez arren. Askoren artean

---

arditzar *iz adkor* ardi handia.

Arditzarren ile horiztatu-narratsaren ondoan arkumeen txuria edertasun hutsa da. Pako Aristi

San Jose inguruan jaio diren arkume jostarinak pendizean behera piririkan ikustea zerbait berria da **arditzar** geldien ondoan. Pako Aristi

---

ardizakur *iz* ardi-txakurra.

Doberman, siberiar husky, setter, aleman **ardizakur**, Yorkshire terrier, dalmata, sanbernardo, boxer, collie. Gotzon Garate

---

ardo *(ETCn **26.538** agerraldi; orobat **ardao** g.er. eta **ardau** g.er.)* **1** *iz* mahatsaren zukutik ateratzen den edari bizia; baso ardoa. ik **arno**; **basoerdi**.

Neskak **ardoa** ekarri dionean basoa erdiraino bete eta tragoan edan du Lainezek. Pello Lizarralde

Izeba Margek besoa luzatu zuen **ardoaren** edalontzia hartzeko. Iñaki Mendiguren

Ardoa, laguna bezala, zaharrago eta hobea baita, omen. Txillardegi

Pailazo batek, adibidez, tu eta tu egin dio tronboiarekin, eta beste batek **ardoa** bota dio bizkarrean lotuta zeraman fumigadora batekin. Jokin Muñoz

Batzuetan Aran auzoko tabernan gelditzen zen **ardoz** erdi-bete baso baten hurrupatzeko. Itxaro Borda

Ardoa, andrea, Jainkoak gizonari egindako opari hoberentsuenetakoa da. Xabier Olarra

Halakoetan kalimotxoak, **ardoa** eta garagardoa edatea gustatzen zitzaion eta, noski, goizeko ordu txikietan -egunsentian askotan- gure txabolara itzultzen ginenean, berebiziko atxurra izaten zuen. Aitor Arana

Argi-argi ez zakiat, baina edozerekin egingo zian horrek dirua: kobrearekin, puntillekin, xanpainarekin, Bordeleko **ardoekin**, ganaduarekin... Hasier Etxeberria

Etxola edari kaxaz beterik dago, **ardoa** eta freskagarriak bereziki. Aingeru Epaltza

Ia afaloste guztietan betetzen zuen aitak erritual bera: ama **ardoa** erretiratzen hasten zenean, aitak, gaztari bultzatu beharraren aitzakiaz, azkeneko tragoa eskatzen zion, leungarri eta guzti, tragotxoa eskatzen baitzuen beti. Anjel Lertxundi

Disimilazio molekularra; hartzidura; berezko delako sortzea; **ardoari** buruzko ikerketak; zeta-harraren eritasuna; garagardoari buruzko ikerketak; eritasun birulentoak; birus-txertoak; errabiaren profilaxia. Juan Garzia

Ardoa kalitate hobekoa delako izango da, nik uste, jauna. Antton Olano

Dantzarako, adiskide-taldea eta musikariak ezinbestekoak ziren eta atsedenaldietan salda eta **ardoa** eskaini behar zitzaizkion gaixoari, izerditu eta pozoia kanpora zezan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zera pentsatu nuen nik, neure artean, arriskatzeko deus ez nuela azken finean, **ardoa** ozpin bihurtzez gerotan beti edukiko nuela neure botoa eskaintzeko aukera. Joxan Elosegi

Hamaikak joak ziren **ardoa** botilaratzez bukatu eta etxera itzuli zenean. Xabier Olarra

Mahai obalatu zuri distiratsuan, xanpaina eta Rhin-eko **ardoa** edateko kopak txandakatzen ziren, toki guztietan bata bestearen ondoan. Lopez de Arana

Tabernetan **ardoa** egoten zen, pattarra, beranduago garagardoa, zigarro bat edo beste, gero neska-laguntzeak zelai bazterretan gora, arbola artean. Pako Aristi

Mutur batean, kobrezko uztaidun teontzietan, pontxea eta **ardoa** berotzen ari ziren gas sutegi txiki baten gar apal urdin-gorrixten gainean. Karlos Zabala

Inoiz saiatu izan gara bestelako gauzak erregalatzen, baina alferrik izan da: soilik **ardoarekin** lortu izan dugu aitaren begien distira iragankor hori. Iban Zaldua

Haatik, Ancionek dioen moduan, iluntzea **ardotan** eta berbetan igaro zitekeen eta, autobuserako bidean noala, atzera egin nuen, nire buruari "kokolo halakoa!" esanez. Edorta Jimenez

Haragia, erramu hostoa eta **ardoa** -dena bere garaian. Anton Garikano

-Ontsa ona da oizu! -ihardetsi nion, **ardoa** hurrupatuz, zintzurrean behera akuilatzen nituen zitzi puskak hortzekin xehakatuz. Itxaro Borda

Ardoaren kultura igualtsu garatuta egongo duk ba han ere... Tira, lotara, esplikatuko diat bihar. Iñaki Iñurrieta

Edan ezazu zeure **ardoa** ! Imanol Zurutuza

Musika, **ardoa**: gizonek eta emakumeek elkarrekin jokatu ohi duten erritua. Oskar Arana

Berak jatekoa maneatzen du eta nik **ardoa** eramaten dut. Eskarne Mujika

Ardoa geratu zitzaidan gogoan: Remelluriko erreserba bat, ez dakit zein urtetakoa, Kristoren odola zirudiena. Xabier Mendiguren Elizegi

Oso tarte polita pasatu genuen, baina ez zuen ondo lo egin, **ardoa** edan zuen-eta. Josu Zabaleta

Gu biok harrituta eta moskeatuta, gutiziagatik baino gehiago **ardoa** siestarako lagungarri gertatuko litzaigukeelako. Pako Aristi

Ardoak garraztu zuen gure aitaren erretiro patxadatsua, eta familiako negozioa erreka jotzeko kinka larrian ezarri. Javi Cillero

2 (izenondoekin)

Eta **ardo** ederrak, gero! Matías Múgica

Oporton jaioa zen, portuan, Douro ibaiak bere urre kolorea galdu eta **ardo** gorri kolorea hartzen duen hirian. Berria - Kultura

Aljeriako **ardo** merkea edo whiski edo gina ahal dutenek. Xabier Montoia

Eta hi heu ere, zertaz ari haiz hi heu **ardo** tristeaz hitz egiten duanean? Anjel Lertxundi

Edozein lanetan eta edonon, ordea, arimaren erdian hauspeatzen zitzaion **ardo** mikatz baten meia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina ez duzu han luzaz egon behar ahantziko baituzu zure helburua eta bizi guzia han egonen baitzara **ardo** ezin hobe eta azkar haien menpe, zuk zure burua Paradisuan duzula uste izanen duzula. Aurelia Arkotxa

Amak zortzi bat egun ohean egiten zituen, oilo-salda eta **ardo** goxoa hartuz. Arantxa Iturbe

Bat-batean, baina, sudurra zimurtu eta mantsoago mastekatzen hasi zen, ahoan zerabilen mokadua dastatuz, sommelier batek **ardo** ezezagun batekin eginen lukeen bezala. Alberto Ladron Arana

Gozoenak ez dakit, baina zinez gustagarriak ziren patatak, itsasoko aingira belarretan egosiarekin eta bertako **ardo** lodiz ondo lagundurik ekarri zizkigutenak. Edorta Jimenez

Eta, gutxi balitz bezala - erreparatu zuen Josebak -, filologo hura **ardo** txarra bezain zakarra zen. Fernando Morillo

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arazoa, noski, urtez urte kooperatibetan eta upeltegietan etengabe hazten ari den **ardo** soberakina da. Berria - Ekonomia

Hego Euskal Herritik eta Espainiatik kanpo saldutako Rioja **ardo** botilen kopurua %6,6 jaitsi zen 2003. urteko lehen 11 hilabeteetan. Berria - Ekonomia

Lehen sektorea %10 handitu zen, **ardo** industriaren arrakastak lagunduta. Berria - Ekonomia

Hiri berezia da, maldan behera erortzen dena, baina kalean egonik usain daiteke **ardo** usaina, ez alferrik da hiria **ardo**-hiri. Berria - Kultura

Afaria amaiturik zen ordurako, eta gainerako guztiak kanpora atereak ziren etxe osteko lorategian esertzera, baina Tom eta biok jangelan geratu ginen, azkeneko **ardo**-hondarrak edaten. Oskar Arana

Ni izkinara joan nintzen itsumustuka, neure ohiko aulkira, eta Nanniek, arasara joan, eta jerez botila bat eta **ardo**-kopa batzuk atera zituen. Irene Aldasoro

Une hartan, izeba Margek eskuan zuen **ardo**-edalontzia lehertu egin zen. Iñaki Mendiguren

Parez pare espageti platerkada bat genuela ari ginen hizketan, **ardo** pitxerrarekin, italiarren artean. Fernando Rey

Jaiki eta **ardo** tragoxka bat edan zuen. Xabier Aranburu

Burua altxa eta pendulu-erlojuari begira-begira jarri da, bistarik kendu ere egin gabe **ardo** trago bat egin du, eta gero irribarre maltzurrez jiratu da. Xabier Etxabe

Beti bezala, aitarentzat oparia erosteko ardura nire esku utzi du anaiak, eta, beti bezala, **ardo** botila pare bat erostea erabaki dut, anaia baino **ardo**-ezagule kaskarragoa banaiz ere. Iban Zaldua

Aitak eta amak alkandora urdin bat, jolas bat, mahats zukuzko botila bat, **ardo** gustu pixka bat duena, nire iritzirako (mahatsez egiten da ardoa), eta puzzle bat, krema pote bat, 2,50 florineko billete bat eta bale bat bi liburu erosteko. Josu Zabaleta

Jazinto ez zela edalaria esan digute, eta hala baieztatzen du Txapastaren anekdotak: beroni ematen zion eguneroko bere **ardo** errazioa Cadizko kontzentrazio eremuan. Koldo Izagirre

4 Hori bezain ona izango da **ardo**-kondarrekin egiten dena. Santiago Iruretagoiena

Han, Begoñako tertzio bizkainoaren kapitain nafar Jaime del Burgok eta guk besteok elkar besarkatu genuen eta elkarren **ardo** zahatoetatik edan genuen. Edorta Jimenez

Eñautek dzanga batez hustu du **ardo** basokada eta berriro betetzeko keinua egin dio telebistako albisteak ikusten ari den zerbitzariari.. Sonia Gonzalez

Meerlust **ardo** botila bat irekitzen du sukaldean, eta gailetak eta gazta jartzen mahai gainean. Oskar Arana

Eta ordurako minez zeukan bihotza, mozkor-barrearen, **ardo**-eskaintzen eta dantza eroaren eraginez; eta ardoa ematen zioten etengabe, ardoa etengabe. Jose Morales

Ardiak artaturik, herriko plazako **ardo** saltegiaren oporrean iragaten zituen arratsaldeak, emaztea atzetik zeukala negarrez oihuka "Non hiz Joanes? Itxaro Borda

'**Ardo** txikitoa,' eskatu nuen. Joseba Sarrionandia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pizza zatiren bat edota beheko tabernan erositako ogitartekoa jango nuen, edo lardaskatu askotan hura ere, osorik sabeleratu gabe, hiru laurdeneko botila **ardoa** lagun. Juan Luis Zabala

Arriskua duzu aurrean, segurtasuna atzean, gutako bik lagundu egingo dizugu, zernahi bilatzen duzula, gu zazpiotako batek aurrera segitzen utziko dizu, beste batek, ordea, atzera eramango du edalea, gure arteko bik asun-**ardoa** bakarrik daukate, gutako hiru hiltzaileak dira, ilaran gordeta zain. Iñaki Mendiguren

Ezin nuen pentsamendua atetik kendu... erretilutik... botila **ardotik** ... botilatik... **ardotik** ... Anjel Lertxundi

Ruche jaunak bere baso **ardoan** bustitako udarearen eta Perrette puska ezin meheagotan mozten ari zen ahuntz-gazta txikiaren bitartean, hitza hartu zuen Jonathanek. Jon Muñoz

Benetako edalontziak dituzte, eta hiru motatako benetako ardoa: basaran-**ardoa**, azeri-mahatsez egindako ardoa eta udaberri--lorez egindakoa. Julen Gabiria

5 ***ardo apardun***

Salbuespen bakarra Champagneko **ardo aparduna** da. Berria - Ekonomia

6 ***ardo apartsu***

Mutilak ardo txuri gehiago isuri dio edalontzian, **ardo apartsua**, txinpartaduna, berari gustatzen zaiona. Alberto Barandiaren

Janari-dendan bizkotxo-paketeak hartu eta **ardo apartsuan** bustitzen zituzten, eta barre-sortak egiten zituzten, mahai gainera makurturik algaraka. Joseba Urteaga

Bere beso esmeralda zeharrargiz zamatuez inguratzen zituen **ardo apartsuz** beteriko kraterak. Juan Garzia

7 ***ardo beltz***

Erdi ilunpetan antzemandako upel ikaragarrietan, hantxe atsedenean milaka hektolitro **ardo beltz** arrunt; paristarrek edango zuten ardotza osoaren zatirik handiena zen hura! Jon Muñoz

Mahats, mahasti, ardantza, mahats ximur eta mahaspasa, txakolin argi, txakolin gorri, ardo txuri, ardo gorri, **ardo beltz**, ardo latz eta ardo goxo... Isil nadin, txurruta jota nabilela pentsa ez dezazuen. Pello Zabala

Bilera bukatu berria eta botila bat **ardo beltzen** inguruan denok eserita. Inazio Mujika Iraola

Baina txorizo eta lukainka ederrak ekartzen zizkigun bere herritik, zerria hiltzen zutenean, eta **ardo beltz** lodia ere bai, gero erdi prezioan saltzen zizkigunak, mauka! Karlos Linazasoro

Abiadore haiei egin zaizkien elkarrizketetan bada beti agertzen den oroitzapena, gau osoa mendian barrena oinez, hotzak eta beldurrez eman ondoren muga zeharkatu eta Sarobe baserrian jaten zutena: **ardo beltz** ona, tortilla zoragarriak eta ardi gazta ketua. Pako Aristi

Menua zera zen: arrain-zopa **ardo beltzarekin** (aldamenekoek botata), haragi egosia patata eta xanpainarekin (ídem) eta flan ogi apurrekin (ídem). Joxean Sagaztizabal

Ezpainak igurtzi ondoren **ardo beltzari** zurruta egin zion Giovanni Mazonik. Joxemari Urteaga

2003an, berriz, **ardo beltzerako** fruituaren kasuan, 7.700 kilo izan ziren hektarea bakoitzeko. Berria - Ekonomia

Ardo beltzak eta te berdeak osasunari egiten dioten mesede bera egiten du garagardoak, ikertzaileon arabera. Berria - Gaiak

Noski, kontzertua biribiltzeko Errioxako **ardo beltzaz** gozatzeko aukerari ez zioten muzin egin ikusleek. Berria - Kultura

O'Neill-en denda atzeko gelatxoan zegoen orain, eta, aurpegi puztu **ardo beltz** edo haragi gorriaren koloreko harekin tabernara ematen zuen leiho txikia betetzen zuela, hots egin zuen. Irene Aldasoro

Ardo beltza eta txistorrarekin argitu ziren lagunen aurpegiak. Pablo Sastre

Egunean 180 gramo kloral hartu arren, eta morfina eta alkoholaz gainera whisky, brandy eta **ardo beltza** litroka, 1882 arte iraun zuen. Ramon Saizarbitoria

Taberna-mutila dator; baso erdi **ardo beltz** eskatzen diot. Eskarne Mujika

8 ***ardo berde***

Ardo berde-zuriz bustitako parrillada batean infiltratu ginen arratsaldeko 17: 30ak aldera, Portotik hurbil, sede baten atzealdeko partean. Berria - Kirola

9 ***ardo berezi***

Pintxoa mamurtzen jarraitu zuen, **ardo bereziari** emango zion trago bikainean pentsatzen. Unai Iturriaga

10 ***ardo bero***

Florentek estalpeko kale baten aterpera hainbat minutuz sartzera behartzen zuen; zenbaitetan Lebigreren tabernara eraman ere egin zuen, **ardo beroa** edatera. Karlos Zabala

11 *ardo berri*

Zure zapaltzaileei beren okela janaraziko diet, beren odolez mozkorraraziko ditut, **ardo berriz** bezala. Elizen arteko biblia

Ez baztertu aspaldiko adiskiderik, egin berria ez baita haren pareko. Adiskide berria, **ardo berria** : utzi zahartzen eta atseginez edango duzu. Elizen arteko biblia

Ardo berria zahagi zaharretan. Iñaki Mendiguren

Zenbait eginkizun burutu beharra zeuzkala gogoratu zuen: dendara joan zen, janari pixka baten bila; liburu lodiago bategatik trukatu zuen berea, eta plazako jarleku batean eseri zen, erositako **ardo berria** dastatzera. Xabier Aranburu

12 *ardo bisdun* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Ikatz eta egur biltegia sotoarekin (erreserbako **ardo bisdun** eta ekuruak) gonbidatu ospetsuentzat. ETC-literatura, saiakera

13 *ardo espeziatu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Egiten diren 3.150 botilatan **ardo espeziatu** eta fruta helduagoa duena aurki daiteke. ETC-prentsa

14 *ardo gorri*

Euskaldunak asko abestu du a, a, a, **ardo gorri** nafarra eta beste, txakolinaren kantak bezalaxe. Pello Zabala

Napar **ardo gorria** edan dugu ausarki. Txillardegi

Janaria prestatu eta **ardo gorria** nahastu zuten. Juan Kruz Igerabide

Tabernariak, urrutitik diosal eginik, **ardo gorri** berezi eta hotza prantatu zion barran. Joxerra Garzia

Egoera horretan, jende gehienak ez ditu bereizten urdaiazpikoa eta arkumea, sagarra eta udarea edo **ardo gorria** eta ozpina. Irene Aldasoro

Maiana oroitzen zen partekatu zuten txokolatesne haguntsuaz; karkazaila ozenak askatuz, ez zela bere edaria aitortu zion eskaleak, **ardo gorri** lodi eta zikina maiteago zuela alabaina. Itxaro Borda

Ni, otorduan zehar, hartu dugun **ardo gorria** bezain hotz egon naiz eta Dabid izan da, hasieran, gure arteko isilune desatsegin luzea apurtzen saiatu dena. Patxi Zubizarreta

-Eta edateko **ardo gorri** freskoa eskatu dugu. Joxemari Iturralde

Ardo gorriak ere jaitsiera izan du salmentari dagokionez, %9,07 gutxiago saldu da; 2002. urtean 8,8 milioi litro saldu baitziren. Berria - Ekonomia

Oilaskoa baserrikoa zen; barraskiloak, Borgoinakoak, eta **ardo gorria** , berriz, Tarn-ekoa. Jon Muñoz

Andereñoa, ekarri nahi al duzu pitxerkada bat Anjouko **ardo gorri** ? Monika Etxebarria

Bizitza oso bat arratsaldeko zortzietan, eta, sei ordu geroago, **ardo gorriz** tindaturiko gau sakonean, estudioko mahaiaren gainean elkar biluzten genuenean bezalatsu sentitzen zaitut orain besaulkitik begira. Aritz Gorrotxategi

Bien bitartean, **ardo gorriaren** palastadak hamaika aldiz estalitako Benito tabernariak bota ahala gorri bihurtzen zihoan zerrautsa zabaldu zuen palatxo baten laguntzaz. Joxemari Urteaga

Berehalaxe itzuli zen, botila bat **ardo gorrirekin** , eta eskuan karta joko bat zekarren, auzoko bati eskatua. Josu Zabaleta

15 *ardo gozo*

Hau ere ikusten dugu: eri den batek **ardo gozoa** edango balu, ardo hori mikatza irudituko litzaioke eta hala dela esango luke. Joan Mari Lekuona

Almadia ongi lotuan bidali ninduen, ogiz eta **ardo gozoz** horniturik, arropa hilezkorrez jantzirik, eta haize epelaz bultzaturik. Juan Kruz Igerabide

Ardo gozoa amatxorentzat eta baso bat esne eta opil antzeko batzuk niretzat. Xabier Montoia

Ai, nola sartu zitzaizkidan bihotzean aitaren hiru laudorio haiek, hiru orratz balira bezala, ene bozkarioaren eta ene ditxaren zahagia **ardo gozoz** betea- zulatu zutenak! Joan Mari Irigoien

Hala ere, Yusupovi kasu egiten badiogu, Rasputinek armadako soldadu talde bat etzateko adina zianuro hartu zuen Felixek eskainitako gozoki, pastel eta **ardo gozotan** , listu ugari eta logale pixka bat baino eragin kaltegarri handiagorik jasan gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

Pedroren arrebek etsita egiten zuten negar, hildakoen aurrean negar egiten den bezala, eta anaia sakristauak, berriz, bisitan zetorren jendearentzat amak egindako opiltxoak jan eta **ardo gozoa** edaten zuen. Jon Maia

Ez ditu gogoko **ardo gozoak** ; haien gustukoa izango zelakoan erosi du. Oskar Arana

Badirela **ardo gozoagoak** ? Eta zer? Sagardoa eta txakolina, horiek gure udazkeneko emariak dira. Pello Zabala

Ardo gozoa ozpin bilakatu zitzaidan, hala deliberatu gabetan. Hasier Etxeberria

16 *ardo handi* *(corpusean ez dago; ETCn 35 agerraldi)*

Arabako Errioxan sortzen den mikroklima berezia da eta, horregatik, mundu mailako beste jatorri deituradun **ardo handien** mailan daude Arabako Errioxakoak. ETC-prentsa

Ardo handiak egon badaude eta gizon handiak izan badira. ETC-prentsa

Ardo ezezagunak oro har, baina **ardo handiak** , dudarik gabe. ETC-prentsa

Hemezortzi urte zituela, familiaren upategiaren ardura hartu zuen,Castro Ventosarena, Bierzoko Valtuilleko mahasti zaharrekin **ardo handiak** egiteko asmoarekin. ETC-prentsa

Munduko toki askotan egiten dira **ardo handiak** , Bordele, Rhone, Australia, Porto, Alemania, Errioxa... eta beste asko eta askotan. ETC-prentsa

Ardo handi hau, xanpaina, ospakizunekin lotu izan da ia beti. ETC-prentsa

Goizean, Vega Siciliaren ardoak dastatzen ari nintzen bitartean, beste batzuek beste sei aukeraren artean erabaki behar izan zuten, erabaki zaila betiere; adibidez, Andaluziako **ardo handiak** . ETC-prentsa

Betiko **ardo handietatik** aparte, Pujanza, Valenciso, xanpainen bat... ETC-prentsa

Adituek diotenez, ehun urte eta gehiago irauteko gaitasuna du **ardo handi** horrek. ETC-prentsa

17 *ardo ondu*

Jaitsiera hori ardo gazteen artean gertatu da; izan ere, **ardo ondua** inoiz baino gehiago saldu da: 123 milioi litro. Berria - Ekonomia

18 *ardo oparo* *(corpusean ez dago; ETCn 11 agerraldi)*

Ardo oparoa destilatutako edaria (normalean brandya) erantsi zaion ardoa da. ETC-entziklopedia

Ardo oparoak : manzanilla, finoa, olorosoa, amontilladoa eta palo cortado-a. ETC-prentsa

Ia berehalako hobekuntza gertatu zen taldearen itxuran, nabarmena guztiz, **ardo oparo** batek eragingo lukeenaren ez oso bestelakoa, aurpegi guztiak eguzki-izpi bizi baten distira bat-bateko batek argitu balitu bezala. ETC-literatura, saiakera

Ezen askatasunari ere gerta dakioke janari sendo eta gozoei gertatu ohi zaiena, edo berdin **ardo oparoei** , zeinak, izaera mardul eta zaildukoak elikatzeko eta indarberritzeko egokiak izanik, aitzitik abaildu, gaixotu eta mozkortu egiten baitituzte haietara ohitu gabeko gaixoberak. ETC-literatura, saiakera

19 *ardo ozpindu*

Ardo ozpindu usaina darion tren geltoki ondoko tabernan sartu naiz. Eider Rodriguez

Auzokideekin **ardo ozpindu** bat edan eta autobusera abiatu zen. Unai Iturriaga

20 *ardo pindartsu*

Eta berehala nepentaren indarrak oratu zion gizon haserreari, eta hantxe geldi-geldi geratu zen, ezpata airean, oro ahantzirik, eden gozoa edan bailuen kratera bateko **ardo pindartsuan** nahasturik. Juan Garzia

21 *ardo urtetsu*

-Don Andresi ardoa gustatuko balitzaio -esan zuen Doroteak-, zahartegian daukagun **ardo urtetsu** horretatik baso bat emango genioke. Josu Zabaleta

22 *ardo zahagi* *(orobat **ardozahagi** g.er. eta **zahagi-ardo** g.er.)* ik **zahagi**.

Gizon ttikiak **ardo zahagi** bat sartu zuen arroparen azpian, eta jan ezin guztia haren ahotik bideratzen zuen. Bernardo Atxaga

Jesek asto bat, ogia, **ardo-zahagia** eta antxume bat hartu eta bere seme Daviden eskuz bidali zizkion Sauli. Elizen arteko biblia

Ondoren, **ardo-zahagia** hartu zuen zakutotik eta trago bat edan zuen. Xabier Aranburu

Gero, **ardo-zahagia** eta olioz beteriko pegarra eman zizkion Juditek mirabeari. Elizen arteko biblia

Berekin zekartzan bi asto txalmaturik eta berrehun ogiz, ehun mahaspasa-mordoz, garaiko ehun fruitu-multzoz eta **ardo-zahagi** batez zamaturik. Elizen arteko biblia

Bertan preso zegoela, ilunpean -leiho bakarra oholekin itsutua zegoen- don Pedro **ardo zahagi** batzuen gainean etzan zen etsita, pentsatuz noiznahi azalduko zirela atean bera "paseoan" eraman behar zutenak. Bernardo Atxaga

Hauek, berriz, ur upelak eta olio dupak zeramatzaten arrodaka, eta haiek **ardo zahagiak** eta pattar bonbilak bizkar gainean. Joan Mari Irigoien

Ardo-zahagia bezain baldan eta mozkor. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mandazainak, eguzkiak errerik, aurpegiak izerditan distiraz zituztela, kantari joaten ziren, olio edo **ardo-zahagien** gainean etzanda, eta mandoak ilaran joaten ziren, erdi lotan. Josu Zabaleta

Amarrukeriaz jokatu zuten: biderakoak hartu eta zaku zaharrak eta **ardozahagi** zahar urratu eta adabakiz josiak bota zizkieten astoei bizkarrera. Elizen arteko biblia

Abigailek, bizkor, hartu zituen berrehun ogi, bi **zahagi ardo**, bost ahari burduntzian erreak, bost arroa gari xigortu, ehun mahaspasa-mordo eta berrehun piku-opil eta astoen gainean ezarri zituen. Jakin behar baitu, oraindik ez badaki, **zahagi-ardoa** dela berorrek hildako erraldoia, eta, odola, sabelean zeuzkan sei arroa ardo beltz, eta lepamozturiko burua berriz, zera... ni egin ninduen puta bera, eta Satanasek har dezala dena. Elizen arteko biblia

Giza adimenduak pentsa dezakeen guztia baino askoz ere goragoko batasuna, aldaketa guztien gainetik dagoena, esate baterako, ur-tanta apurrik apurrena **zahagi-ardoarekin** nahasten denean baino askoz ere goragoko batasuna. Joan Mari Lekuona

23 *ardo zahar*

Ardo zaharrak aitzakiarik behar ez duen bezala. Txillardegi

Gau batean Bordeleko **ardo zaharrezko** botila bat, katilu bat esne, nik gorroto diodana, eta zale amorratua naizen txokolate pastelak jarri nituen ur botilaren ondoan. Josu Zabaleta

Margolan eta bitxi kontuetan, Fortunato, bere herrikideak bezala, gezurti bat zen, baina zintzoa **ardo zaharren** auzian. Koro Navarro

Sion mendian, Jaun ahalguztidunak otordu oparoa emango du nazio guztientzat, janari gozo mamitsuz, **ardo zahar** bikainez. Elizen arteko biblia

24 *ardo zuri*

Langosta jangaitz zegoen, baina Penedesko **ardo zuria** zoragarri. Patxi Iturritegi

Hortaz, Andreas barran geratu zen pixka bat eta hiru baso **ardo zuri** edan zituen; hein batez patuari esker emateko. Matías Mujika

Bestetik, hainbat fruta eta ardotako (sagardo, txakolin, **ardo zuri**, etc.) eta jatorri "ospetsuko" (Modena, Xerez, Borgoina, Libano, etc) ozpinen kontsumoa areagotuz doa, jendearen sakela epeldu ahala. Edorta Agirre

Aperitibo gisa azeituna beteak atera ditu, eta **ardo zuri** hotza ari dira edaten kopa luzetan. Joxemari Iturralde

Bordeleko **ardo zuri** gozoa, foie graserako; beltz lodi bat, indioilarrerako; eta Épernayko xanpaina brut bat, azkenik, enbor izozturako. Jon Muñoz

Bruni-k, Nitro sailekoak, galdetu zuen ea inork ba ote zekien zergatik doan ondo arraina **ardo zuriarekin**: zenbait iruzkin burlati entzuteko parada izan zen, baina inork ez zuen asmatu modu erabakigarrian erantzuten. Juan Garzia

Eguneroko martxa ezerk ez bortxatzea eta Rhineko **ardo zuririk** ez faltatzea, horiek iruditzen zitzaizkidan aitak bizitzari eskatzen zizkion etekin bakarrak. Anjel Lertxundi

Ardo zuria atera zuen Mirandek, bi edalontzi ttikitan, isurkin hura emakumearen azalera lehenbailehen kanporatu eta aingeru aurpegi hura izerdituago ikusteko irrikaz. Harkaitz Cano

Jangelatxoan, mahaiak gozokiz eta opil gozoz betetako erretiluak eta **ardo zurizko** botilak eskaintzen zizkieten bertaratuei. Josu Zabaleta

Kolomanek botila bat **ardo zuri** zabaltzen du, ateratzen du ardoa edontzira, jasotzen du edontzia eta. Eskarne Mujika

La Granja tabernan eseri ginen, eta berak **ardo zuria** edaten zuen. Berria - Kultura

Ardo zuria gutxiago saldu zen, 12,7 milioi litro, hau da, %15,91 gutxiago. Berria - Ekonomia

25 *ardoa bataiatu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ezta hik bezain ongi **ardoa bataiatzen** ere, algara egin diote Beauleti. ETC-literatura, saiakera

26 *ardoak erre* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aitzitik, nola hordiak anitz edanez egarritzenago baitira, zeren **ardoak erretzen** baititu, hala etsaiak ere ihardukiz etsaitzenago dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

27 *ardoak igaro* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ez nau oraingino inork ikusi **ardoak igarota**, gaitz eginda, zabuka oinak lokaturik, ez mihia motelduta, ez begiak lausotuta, askok legez euren osasun, ondasun eta arimen kaltean. ETC-literatura, saiakera

28 *erreserba handiko ardo* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Salmentak, batez ere, **erreserba handiko ardoetan** jaitsi ziren. ETC-prentsa

Bisitaldiaren amaierako dastaketan, Bidaiaria ez zen ausartu esatera gero eta gehiago gustatzen zitzaiola zuria, edo urteko ardo ona besterik gabe, zeren Erremellurin ez urtekorik ez ondurik, erreserba eta **erreserba handiko ardoak** baino ez baitira egiten. ETC-prentsa

Carlosek aukeratutako **erreserba handiko ardoa** eta Carlosek aukeratutako janaria, esaldi solteekin tartekatu zituen berak. ETC-literatura, saiakera

29 *erreserbako ardo* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Erreserbako ardoa bezala, edalontzia goraino bete gabe, kalterik egin ez diezaion. ETC-literatura, saiakera

[...] bazter-etxea, ikatz eta egur biltegia sotoarekin (**erreserbako ardo** bisdun eta ekuruak) gonbidatu ospetsuentzat, afarira gonbidatuz gero (gaueko janzkia), karbono-monoxidoaren instalazioa etxe osoan. ETC-literatura, saiakera

Erreserbako ardoa, sufre dioxidoari eta azido sorbikoari esker ongi gordetakoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erabilitako mahatsarekin, prozesu guztia amaituta, ondua eta **erreserbako ardoak** ateratzen dituzte. ETC-prentsa

Urteko ardoa, ardo ondua, **erreserbako ardoa** eta erreserba handiko ardoa etiketatzen dira. ETC-prentsa

5 puntu: Pintxo bat edo Arabako Errioxako **erreserbako ardoa**. ETC-prentsa

Eta, gauzak horrela, berria irakurtzen segitu ez bagenu, eguerdi hartan bertan, **erreserbako ardoa** zabaldu eta edango genuen, tutik ere esan gabe. ETC-prentsa

Erreserbako ardoak izan du igoera bakarra: %7,10 gehiago saldu da, 0,9 milioi litro gehiago. ETC-prentsa

Untxia zaharkituta gelditu denez, nik **erreserbako ardo** on batekin bustitako bixigua nahiago. ETC-prentsa

Jakingo al genuke **erreserbako ardoa** eskailerapekotik bereizten? Paratu François Mauriacen testua, izenik gabe, edota Scott Fritzgeraldena, eta emaiozu, bere biluztasunean, edozein kritikori. ETC-prentsa

Produktuen artean ere bada berritasun bat: Errioxa jatorri izena duen lehenengo **erreserbako ardo** ekologiko handia aurkeztuko dute. ETC-prentsa

30 *eskailerapeko ardo*

Etsita, pixkanaka moldatuko zela-eta, okasiorako gorderik zeukan **eskailerapeko ardo** botila hoberenetako bat ekarrarazi zion Emileri, Brigittek afari berezia prestatu zuen egunean. Joxemari Urteaga

31 *ez ur ez ardo*

Azken batean -esan zion-, zu **Ez Ur ez Ardo** baino ez zara. Julen Gabiria

Munduan bada sailkatzen oso zaila den jendea: ez dira ez hori ez bestea, **ez ur ez ardo**. Jose Morales

32 *mahaiko ardo*

Ondorioak larriak dira: edo soberakinak kalifikaziotik kendu eta **mahaiko ardo** bezala saldu edo upeltegi handi bati saldu, "salneurri barregarrien truke», EHNEk salatu

duenez. Berria - Ekonomia

"**Mahaiko ardoa**" esaten zitzaioan. Xabier Olarra

33 *masusta ardo* *(corpusean **masustardo** soilik)*

Masustardotarako erabiltzen dira bakarrik han, Britainia alde haietan. Pello Zabala

34 *mezako ardo*

Mezako ardo goxo hark goragoko sentsazioetara eraman zuen, sotana izerdituak errebisatzen zituen han kapelutegian zintzilik eta bazituen haientzat zeresanak. Joseba Sarrionandia

35 *ogi ala ardo* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Adibidez, txanpon bat jaurtitzean, aukera bera dago **ogi ala ardo** ateratzeko, eta dado bat botatzean zenbaki guztiek dute irteteko aukera bera, hots, seitik bat, 1/6. ETC-zientzia, zuzenbidea

36 *ogi-ardo*

Mandatua betez, heldu zen goardianoa haiek zeuden tokira, **ogi-ardoak** eskaini zizkien eta San Frantziskok agindu ziona egin eta esan zuen. Askoren artean

Une hartan, Melkisedek Xalemgo erregeak **ogi-ardoak** atera zituen, Goi-goiko Jainkoaren apaiza baitzen,. Elizen arteko biblia

Jainkoak eman diezazkizula zeruko ihintza eta lurreko guritasuna, **ogi-ardotan** oparotasuna. Elizen arteko biblia

37 *postreko ardo* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Postreko ardoak deritzenak, zenbait azkenburu postre laguntzeko egokia den zapore gozo bat duten ardoak dira. ETC-entziklopedia

38 *txakil ardo*

Badira edo izan dira hor nonbait ezbehar honen kontra asmatutako arinbideak, eta horietako bat da, edo zen, **txakil-ardoa** (hots, "zakil-ardoa") izeneko usadio beneragarria. Neska ederrari edo dotore bati laguntzen zionak, berriro tabernara lagunetara etorritakoan, **txakil-ardoa** atera bear izaten zuen. Iñaki Segurola

39 *ur-ardo ontzi* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Urregintzazko bilduma zabal bat du (gurutzeak prozesionalak, ekisaindu, kupoi, kalizak, pixideak, portabiatikoak, nabetak, krisma-ontziak, **ur-ardo** ontziak, erlikarioak, etab.) eta garapen artistikoaren araberako irizpide kronologikoarekin daude sailkatuak, XIII. Mendeko erromaniko trantsizio garaitik hasi eta XX. mende hasierako neo mugimenduetara arte. ETC-entziklopedia

40 *urteko ardo*

Muztioa erortzen den harraskak erakutsi zizkioten -ontzietan biltzeko erabiltzen direnak-, eta bodega modernoa, bi **urteko ardoak** jasotzeko adinakoa, bere zurezko upel eta konoekin. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adina ardo** (4); **ardo ateratzen** (4); **ardo bat** (11); **ardo baten** (4); **ardo beltz** (20); **ardo beltza** (17); **ardo beltzaren** (5); **ardo berria** (9); **ardo bihurtu** (7); **ardo botila** (52); **ardo botila bat** (11); **ardo botila on** (5); **ardo botilak** (6); **ardo edan** (11); **ardo ematen** (4); **ardo eskatu** (7); **ardo eta olioaren** (6); **ardo gehiago** (12); **ardo gorri** (10); **ardo gorria** (8); **ardo goxo** (4); **ardo goxoa** (6); **ardo gozoa** (7); **ardo guztia** (4); **ardo hartu** (4); **ardo hau** (7); **ardo hori** (7); **ardo isur** (4); **ardo koloreko** (5); **ardo kopa** (6); **ardo on** (5); **ardo ona** (20); **ardo onak** (4); **ardo pixka** (20); **ardo pixka bat** (19); **ardo tantarik** (4); **ardo txuri** (9); **ardo txuria** (4); **ardo usaina** (6); **ardo zahagi** (6); **ardo zahagia** (6); **ardo zuri** (13); **ardo zuria** (16); **ardo zuriarekin** (4); **baso ardo** (6); **baso bat ardo** (25); **basokada bat ardo** (4); **bat ardo** (83); **beste ardo bat** (5); **bete ardo** (13); **bi ardo** (6); **bordeleko ardo** (4); **botila ardo** (13); **botila bat ardo** (25);erdi ardo (4); **errioxako ardo** (11); **kopa bat ardo** (6); **lehen ardo** (4); **litro ardo** (11); **ogi eta ardo** (7); **pegar ardo** (4); **pitxer bat ardo** (4); **ura ardo bihurtu** (6)
>
> **ardoa atera** (7); **ardoa baino** (8); **ardoa bezain** (6); **ardoa bezala** (4); **ardoa edan** (29); **ardoa edan zuen** (6); **ardoa edatea** (5); **ardoa edateko** (9); **ardoa edaten** (26); **ardoa edaten zuten** (4); **ardoa edatera** (4); **ardoa ekarri** (7); **ardoa ematen** (5); **ardoa eskaini** (5); **ardoa eskatu** (9); **ardoa eta olioa** (5); **ardoa isuri** (5); **ardoa lagun** (4); **ardoa ugari** (5); **baina ardoa** (6); **baso ardoa** (4); **botila ardoa** (19); **errioxako ardoa** (7); **jan eta ardoa** (5); **ogia eta ardoa** (10); **txakil ardoa** (6)
>
> **ardoaren eraginez** (5); **errioxako ardoaren** (11)
>
> **botila ardoari** (4)
>
> **ardorik edan** (5); **ardorik edango** (8); **ardorik ez** (7); **ardorik onena** (4)
>
> **eta ardotan** (5)
>
> **ardoz bete** (11); **ardoz beterik** (6); **ardoz hornitu** (4)

---

ardogile *iz* ardoa egiten duen pertsona.

Euriteek uzta ez hondatzea da orain **ardogileen** ardura; kalitate ona du fruituak, baina kopurua jaitsiko da. Berria - Harian

Kalitateari dagokienez, baikor dira **ardogileak**. Berria - Harian

Ardura bakarra dute orain **ardogileek**: euri zaparradarik ez izatea. Berria - Ekonomia

Ardoaren lehengaiak, orain arte, oso itxura ona du, baina azken txanpan eguraldia erabakigarria izango da, eta euriteek uzta ez hondatzea da orain nekazarien eta **ardogileen** buruhauste nagusia. Berria - Harian

UAGAk Arabako **ardogileen** sustengua eskatu zuen atzo, lehen aldiz, ordezkaritza lortu ahal izateko Errioxako Ardoaren Kontseilu Arautzailean. Berria - Ekonomia

Goizean goiz **ardogilearekin** joana zen hara, ea irakiten hasitako bi kupelekin zer egin zitekeen aztertzera. Xabier Olarra

---

ardogintza *iz* ardoaren ekoizketa.

ETBk emandako informazioaren arabera, elikagai enpresak eta **ardogintzari** lotutakoak dira boikot kanpainaren jomuga. Berria - Euskal Herria

Muturrerainoko perfekziozalea da eta, **ardogintzan** gertatzen den bezala, horrek nahitaez industriaren abiadura erotik kanpo dagoen lan erritmo sosegatua eskatzen du, baita uzta ederra ematen ere. Berria - Kultura

Bost sektore nagusi aztertu ditugu: okelagintza sektorea, arrantza sektorea, esne ekoizpen sektorea, barazkien kontserba sektorea, eta **ardogintza** sektorea. Berria - Gaiak

Besteak beste, **ardogintzakoak**, autogintzako eta aeronautikako ondasunetakoak eta eskuz landutako osagaien ekoizpenekoak dira New Yorken eta Chicagon izango diren enpresak. Berria - Ekonomia

Kontseilu Arau-emailearen moldaketa batetik sortutako organo berri horrek **ardogintzako** profesionalak bilduko ditu, Jatorri Izenaren lerro nagusiak zehazteko. Berria - Ekonomia

---

ardoketan *adlag* ardoa erosten.

Otsailaren erdia da, eta etxerako **ardoketan** izandu naiz Nafarroako Gares aldean. Patziku Perurena

---

ardoketari *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)* *iz* ardo sailtzailea.

Konparazioak ez zuen **ardoketaria** ikaratzen. ETC-literatura, saiakera

Gisa horretan, preso eta gatibuaren arteko solasaldietan antigoaleko idazle handi eta pentsalari handien agerpenak sarritzeaz gain, adibidez, inprimatzaile jendearen aipamenak ere tartekatzen hasi ziren, soldadu, ferratzaile, merkatari, mandazain eta **ardoketariez** baizik ez zekien Bereauren harridurarako. ETC-literatura, saiakera

Espirituek isuri egiten zuten oraindino, eta behekoek zelan-halan hartu zuten ardoa: lora-neskek ahoa zabalduz edo **ardoketari** gorriengana jauzi eginda musu emanez gehiago hartzearren. ETC-literatura, saiakera

Bai abere klase eta basapizti guzien, bai hamaika jendemodu ezagun eta arrotzen ibileraren testigu: artzai, itzai, meatzari, ikazkin, bidelapur, tratalari, egurketari, iheslari, **ardoketari**, mandatari? ETC-literatura, saiakera

-Ardoketari batek ekartzen dit Bordele ondotik. ETC-literatura, saiakera

[...] Dori errekardaria bere hiru semeekin, Martin Gorri **ardoketaria** beti bezain eder, aitaren moldiztegiko laguna beti bezain uzkur, [...]. ETC-literatura, saiakera

---

ardontzi *iz* ardo ontzia.

Barruan, harrizko **ardontziak** daude, eta erlauntzak eta harrizko ehundegiak; haietan ehuntzen dituzte ninfek beren jantziak itsasoko purpuraz. Juan Kruz Igerabide

---

ardora 1 *iz* errainua, isla.

Norberaren jarlekuaren gaineko lanparatxoa ere amatatzeko eskatua zitzaigun; dena ilun, kanpoko hondarraren **ardora** izan ezik: hegazkinaren hegalak ilargi-argitan diz-diz, hotz. Joxe Austin Arrieta

Laino batzuk agertu ziren zeruan ilargia bildu nahirik, eta itsasgaineko **ardora** beldurrez dardarka zegoela zirudien ilargia noiz ezkutatuko. Anjel Lertxundi

Ilargiaren errainu zilartsuak **ardora** zirudien itsasgainean. Anjel Lertxundi

Argi zilartsu bat sartzen zen hondoko leiho txikitik, itsasoko gau-**ardora** zilartsuaren distiraz baitzeuden bertako kristalak. Anjel Lertxundi

Kaiko muturreraino goaz, haraino heldu beharra baitago ilargiak itsasgainari sorrarazten dion **ardoraren** tankerako distira bete-betean ederretsiko bada. Anjel Lertxundi

Ordu erdiko arraunketara, itsasgainek **ardoraren** zilarrez behar dute: arrantza egiteko abelerarik onenean. Anjel Lertxundi

2 *ardoran ibili*

- Ikusten bagaituzte, **ardoran gabiltzala**. Koldo Izagirre

---

ardotegi *(corpusean ez dago; ETCn **71** agerraldi) iz* ardoa egiteko, gordetzeko edo saltzeko prestatzen den tokia. ik **ardandegi**.

Halako likido txar batez beteriko botila ilunak ikusten baziren... a-erre-ar-de-o-do-ardo... garai batean Eliseiev anaiena izaniko **ardotegia**. ETC-literatura, saiakera

Frank Gerhyren titaniozko egoitzak salbatu zuen Bilbo industria egituren erraustearen zepoan behera erortzetik: arrakastatsua suertatu zen, eta Gasteiz ondoan, Errioxako **ardotegi** erraldoiak arkitekto berari prestigiozko hotel futurista baten marraztea manatu zion. ETC-literatura, saiakera

Esaten zidan unibertsitateko hainbat lagun biltzea lortu zuela, eta afari bat prestatu zuela bere etxean ospakizuna egiteko, gaurko, larunbata, arratsaldeko zortzietan, eta seguru zegoela botila ardo bikain batzuk eramango nituela nire **ardotegi** ezinago bikainetik. ETC-literatura, saiakera

Denda eraikin solairu-bakarra izaten da beti, txokolate-tableta baten gisan zatikatua: janari-denda, harategia eta **ardotegia**, xafla izurtuzko teilatu baten azpian; egur ilunezko salmahai bat izaten du, eta salmahaiaren atzeko apaletan edozer gauza egoten da, mukieriarentzako edabe batetik hasita hortzetako eskuilak arte, dena nahastua. ETC-literatura, saiakera

Alabaina, lan egiteari utzi zion, bera eta emaztea, Odile, ardo-dastaketa batera gonbidatuta baitzeuden Matthews-en, Cambridgeko **ardotegi** onenetako batean. ETC-literatura, saiakera

Eta distiraren barnean suzko edukia: **ardotegi** moderno bat, Tiffany's wine, edaria harribitxi. ETC-literatura, saiakera

Amets eta Maialen igogailuan, Unai eta Aitor **ardotegi** bateko eskaileratan gora eta Jokin eta Aritz ohean, itogin baten azpian. ETC-prentsa

Jakuerena etxeko sotoan egon zen hiru egunez, lehen **ardotegia** zen gelan; arbasoek egindako ardo kupelak egoten ziren lekuan, koltxoi txiki baten gainean. ETC-prentsa

Ia goiz osoa Irulegiko **ardotegi** batean eman izanak argi erakusten du eginiko mespretxua. ETC-prentsa

Afariaren aurretik, Zuazo Gaston **ardotegia** bisitatzen izan ziren guztiak. ETC-prentsa

Hiru **ardotegi** baino ez zeuden garai batean, eta hirurehun izango dira orain. ETC-prentsa

Jatetxeen **ardotegiaz** gain, zerbitzua, janaria eta giroa hartu dituzte kontuan. ETC-prentsa

Demagun Abadiñoko saltoki txiki batean, herriko letxugak saltzeaz gain, Bastidako **ardotegi** txiki bateko ardoa edo Ipar Euskal Herriko gaztak ere saltzen direla. ETC-prentsa

Lehen, **ardotegi**-garagardotegi bat neukan herrian, sukaldearekin. ETC-prentsa

---

ardotu 1 *izond adkor* ardo bihurtua.

Ene barne **ardotua** ez zegoen buruari horrenbertze lan eginarazteko. Aingeru Epaltza

Laukote **ardotuaren** paretik pasatzen nintzenean, nioen: [...]. Itxaro Borda

2 ***ur-ardotu*** *izond adkor* nahasketagatik indarra galdu duena.

Hondarrean, koadernoko orrialdean idatzitako zorioneko lerroetara murriztu nuen neure protesta hargatik ere **ur-ardotua**. Aingeru Epaltza

---

ardotxartu *izond adkor* mindua.

Garai hartako apaizek, denak ez diat esango, baina askok umore mindua edukitzen zitean, **ardotxartua**, eta borondate maiztua. Pako Aristi

---

ardotxo 1 *iz adkor* basotxo bat ardo.

Ardotxo bat hartzeko tenorea diagu!, eta mantala erantzi zuen. Anjel Lertxundi

-Uste nuen aspirinek ez zutela efekturik egiten, beti ere **ardotxo** bat zela onena. Unai Iturriaga

-Ateraidazu **ardotxo** bat. Anjel Lertxundi

Bihotza, bere zorioneko bihotza, pitin bat goraturik Centre Catalá hartan **ardotxo** bana joko zuten Tobiok eta Andresek, lagun biek. Edorta Jimenez

Bigarren tabernan, ez naiz gogoratzen izenaz, "Zigor" agian, beste **ardotxo** bana eskatu genuen, eta hura ere jendez mukuru zegoen eta musika aurrekoan bezain ozen. Joxemari Iturralde

2 *adkor* ardoa.

Kantua amaitu zutenean, **ardotxo** txuritik eta kolore guztietakotik egin zuten trago. Anjel Lertxundi

---

ardotza *iz* ardo kopuru ez txikia.

Ilunpetan antzemandako upel ikaragarrietan, hantxe atsedenean milaka hektolitro ardo beltz arrunt; paristarrek edango zuten **ardotza** osoaren zatirik handiena zen hura! Jon Muñoz

ardozahagi ik **ardo 2**.

---

ardozale *izond/iz* ardoaren zaleegia dena.

Ez **ardozale**, ez eta sesiozale ere, bihozbera baizik, baketsu eta ez diruzale. Elizen arteko biblia

Zarauztarra da, eta **ardozalea**, ni bezala. Pako Aristi

Ardo pixka bat eramanen diot agureari, **ardozalea** baita! Fernando Rey

Esna zaitezte, mozkor horiek, eta egizue negar! Egin garrasi, **ardozaleok**! Elizen arteko biblia

Ez duzue jadanik ardorik dastatukoZoritxarrekoa Samaria, efraimdar mozkorren koroa harroxko, haran joriaren gainean garai zauden apaindurazko lore-sorta zimel, **ardozaleen** hiri! Elizen arteko biblia

Antzinako **ardozale** bati trenbide istripu batean sekulakoa hartu ondoren, ezpainetan ardo pixka bat jarri zioten suspertzeko. Xabier Olarra

Bi **ardozale** barran, beste inor ez. Alberto Barandiaren

Gisela ardoarekin ailegatu zenean, poz-estasi eroan lehertu ziren, **ardozale** porrokatuak baitziren. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ez ardozale** (3)

---

ardozaletu, ardozale(tu), ardozaletzen da/du *ad* ardozale bihurtu.

Ez ote haiz **ardozaletu** Tel Al-Kebir-en? Patxi Zubizarreta

---

ardura[1] *(ETCn **26.538** agerraldi, **ardura** adizlagunaren agerraldienekin batean) iz* zerbaitetan jartzen den gogo ohartasuna. ik **arta**[1], **arreta**.

Ikuslearengan zirrara eragiteko **ardurarekin** baturik, hauxe da XVIII. mendean Diderotek pinturaz ematen duen definizioa, esate baterako. Josu Zabaleta

Bergara eta Azkoitia artean dagoen Elosu auzoan bizi zen, eta bere **arduretako** bat Loiolako Herri Irratiak Itxumendin (731 metrotan) zeukan zentro emisorea zaintzea zen. Pello Zabala

Tori, hona hemen emakume begiratu bati dagozkion jantzi moduzkook; **arduraz** zaindu itzazu, Joanatxo; eta moztaraz itzazu bere-berehala ileok, hor ikusten baitizkizut, biribilean ebakiak. Juan Garzia

Zira bustia eta kapela eranzteko **ardurarik** ere hartu gabe. Koldo Biguri

Ni hortz-haginak mihiaz banan-banan miatzen ari, badaezpada ere, ea baten bat koloka ote zegoen; gainerako guztiak **ardurarik** ez niri. Joxe Austin Arrieta

Tximu ar izateko **arduretatik** aske, sekula ez bezalako gozamena hartu nuen haren ondoan eta bera ere ez zen esku-hutsik geratu plazer kontutan. Hasier Etxeberria

Ikasleei egurra eman **ardurarik** gabe, fakultatearen mailari eta izen onari eutsi behar diegu eta. Jon Arretxe

Orriaren gainean makurtua ari zen idazten, **arduraz** eta ganoraz. Jon Muñoz

Menard-en lagun zinezkoek **arduraz** ikusi dute katalogo hori; **arduraz**, eta nolabaiteko tristuraz ere bai. Juan Garzia

Omissis curis, jucunde vivendum esse; esan nahi baita, alai eta **ardurarik** gabe bizi beharra dagoela. Koro Navarro

Fionn, bakarrean txabolaren ate aurrean eserita, zurezko makilatxoak mozten eta leuntzen ari zen lanabes-kirtenak egiteko asmoz, gertaera kezkagarri haietaz inongo **ardurarik** erakutsi gabe. Joanes Urkixo

Izan ere, Sara bere ahizpa Karmelerekin bizi zen, eta Karmeleren etxeko **ardurak** zituen -sukaldea, erosketak eta garbiketa-, Karmelek Zarauzko ikastolarako joan-etorria egiten zuen bitartean. Joan Mari Irigoien

'Juamanuel ez da hemendik agertu?' esan nuen, **ardurarik** gabe. Joseba Sarrionandia

Mirena DIUarekin, berriz, ez dago horren **ardurarik**. Luis Elberdin

Hori dela eta, nabigatzaileek pribilegio batzuk jasotzen zituzten .157, inperioaren osasuna beren **arduraren** mende zegoelako. Iñaki Iñurrieta

Horrelako **ardurarik** ezin diot nire mendeko bati edo negozio gizon bati eskatu, guztiz zuhurra eta guztiz isila behar baitu izan. Josu Zabaleta

Baina, egun batez, pitxarra betea zuela ikusirik, **arduraz** eta beldurrez, bere etxeko sabaian zintzilikatu zuen. Patxi Zubizarreta

Irakasleek ez zuten istorio hauen egiazkotasunaren inolako **ardurarik**; aditzera emateko lengoaiaren edertasunaz soilik arduratzen ziren. Imanol Unzurrunzaga

Belarrarekiko tamaina beretsuko lorearen **ardurak** ere erne zeukaten gure laboraria. Pello Zabala

Edo ahaztu egin al zaizu semea Easako banku bateko **arduradunetako** bat dela? Joan Mari Irigoien

Zortea dugun gutxi batzuek, aita izateko irrikaz eta aita izateari dagozkion **ardurak** bere gain hartzeko gizon bat dugu alboan. Arantxa Iturbe

Horrekiko **ardurak** bilakabidea gainditzera eramaten du nonbait hiztuna. Lourdes Oñederra

Gauzak honela, jar belarri irekia eta gogo ernea, **arduretatik** libratua, egiazko doktrinari, fintasun leialez eskaintzen dizkizudan dohainok arbuioz laga ez ditzazun, ulertu aurretik. Xabier Amuriza

Aristokratak besteetatik bereizten dituena, zera baino ez da: hain kezkaturik egotea beren genealogiaz, ezen **ardurarik** handienaz egiten baitiete kontu xehetasunei. Juan Garzia

Ez dio zure ohiko estiloari jarraitzen eta gai xelebreez mintzo da, ez dirudite zure **ardurako** aferak, ez nireak. Itziar Otegi

Baina trintxera asko abandonatzeko aitzakia ere izan zen, eta, azken finean, porrotaren **arduraz** desenkusatzen zituen. Ramon Saizarbitoria

Bat garen kontzientziarekin bakarrik ulertuko dugu gure **arduraren** neurria. Pako Aristi

2 (izenondoekin)

Bufaloez, adibidez, **ardura** handia dute. Gotzon Garate

Umeak **ardura** handi barik ikusi ditu, solas eta txantxa, eskolara bidean. Urtzi Urrutikoeetxea

Madrilen aurpegi berriak agertu ziren gobernuan, EAJk **ardura** berriak ditu, harreman berriak daude batzuen eta besteen artean... Jokin Urain

Baina hala ere, kontu handiz sailkatu eta gorde zituen koaderno guztiak; Kafkak egin ez zuen eran, Cioranek ere ez zuen norbere lana zaborretara botatzeko **ardura** mingarria bere gain hartu. Harkaitz Cano

Guztiz bereganatuko duen eginkizun bat bilatzea da nire **ardura** nagusia. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Atea ezari-ezarian ireki zen, **ardura** handiz. Lopez de Arana

Bertako zaldiez, gurdiez eta aziendaz, **ardura** berezia hartua du Pedro izeneko etxeko-jaunak. Txillardegi

Dena esplikatu nion puntuz puntu, ulertu egin zuen, eta orain **ardura** handi-handia agertzen du nire segurtasunaz. Karlos Zabala

Ardura benetan garrantzitsua baina handiegia letra-elkartzaile apal honentzat. Txema Ramirez de la Piscina

Uste izatekoa zen erbestean ere **ardura** militarren bat hartuko zuela, nahiz eta, beharrezko zuhurtasunez, niri ezer aipatu ez. Alberto Ladron Arana

Agian, horregatik azaltzen du gaur egun **ardura** ozpindu hori, agian, horregatik beti kexuka baina beti laguntzen dihardu, besteen erantzukizun faltaren hutsuneak ezin konpondu, besteek utzitako desordena nola konpondu ezin asmatu. Lander Garro

Fernando Muñozgurenek **ardura** berezia hartu du gure lanaz Koldo Izagirre

Jarduera atsegingarria ekartzen digu gogora, baina aldi berean serioa ez den, **ardura** handiegiz hartu behar ez den gauza. Iñaki Arranz

Bakean zegoela sentitu beharra nuen, egiazko beharra, bizitzako **ardura** xumeetara guztiz emana zegoela, nire arimaren atsekabe nahasietatik kanpo eta urruti zegoelako zorionean. Josu Zabaleta

Aitona Nikolasek -eta gure aitak ere ez gutiago- etxearen eta etxekoen erreputazionea eta izen ona zuen kezka eta **ardura** nagusi, muinetaraino eta erroetaraino sartua. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Murrizten diat heure administratzaile-**ardura**. Juan Garzia

Gizonak baditu bere lan-**ardurak**, neskarenak baino larriagoak segurutik. Urtzi Urrutikoeetxea

2 *ardura eduki*

Gauez ibiltari nenbilenetan, bilkuraz bilkura zehazkiago, Norma Jean anderea **ardura neukan** gogoaren zirikari, Emile Zola bera asmatzera ausartuko ez zen haren bizipen sufritua. Itxaro Borda

Oso umore onekoa, gure amak hala esan ohi zuen, umorearena zoritxarra konpentsatzeko izango zela, eta izeba Cecilia etxeko neskatxa mimatua izatetik izugarrizko **ardura edukitzera** pasatu zen denbora laburrean. Mikel Hernandez Abaitua

-Komunista naiz, aita bezala -jarraitu zuen Adelak- orain nabilen alderdi hau ez da gerra garaikoa bera, nahiz eta agintari batzuk ordukoak izan eta akats larrien **ardura eduki**. Juan Kruz Igerabide

3 *ardura eman*

Guri ez digute **ardura ematen** hilketek, lehentxeago edo geroxeago argituko dira, txostenak baizik. Migel Angel Mintegi

Gehiago dena haatik, hori gogoan ez nuen halere ni baitan sendi bihotzaren zolako minak eta muinen barnerainoko etsipenak **ardura ematen** duten latz ezin saminago hura. Janbattitt Dirassar

4 *ardura hartu*

Baina hobe dut neure burua ez engainatu; nahiko **ardura hartzen** dut, eta ez daukat zertan zu aspertu, eta ez ni ere, zeren, egia esateko, animu gutxirekin nabil azkenaldi honetan. Josu Zabaleta

Gure amak gure aita lasaitzeko **ardura hartzen** zuen, baina hura ez zen batere lasaitzen. Pello Lizarralde

-Arrazoia daukazu, Luisa, badirudi mende osoaren laburpena egiteko **ardura hartu** dudala zure aurrean, neure bihotz hutsaren arazoak konpondu ezin ditudan bitartean! Pako Aristi

Inork ez zuen kontrakorik esan, eta Muthiko Alaiek magnetofonoaz grabatzeko **ardura hartu** zuten. Iñaki Iñurrieta

Beharrik, gazte luzeari jarraitzeko **ardura hartua** zuen lehen momentutik. Alberto Ladron Arana

5 *ardura intentsibo* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Zentro horiek traumarako shock-unitateak, **Ardura Intentsiboko** Unitateak, eta paziente hauentzako osasun-langile espezializatuak dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *ardura izan*[1] dio *ad*

Ez dio **ardura non** eta nola geratzen den. Luis Elberdin

"Zer **ardura dit** Cervantes-ek han ipini nahi zuenak edo ez zuenak, eta egiaz ipini zuenak? Joxe Azurmendi

Nori **ardura zion**, egiaz, musker, ostruka, olagarro edota lehoi-inurriarekin amaitu izana? Karlos Linazasoro

Garrantzitsua da zuentzat hauek zuen lantegietan, zuen itsasontzietan, zuen baserrietan lan egitea; eta gutxi **ardura dio** zuenak bezalakoak ez diren fedegaiak dituzten ala ez. Juan Martin Elexpuru

Etorkizunerako amets-mordoa besterik ez dute, baina nahikoa iruditzen zaie hori, nonbait, beren burua horren arranditsu agertzeko, piper bat **ardura dielarik**. Joxe Austin Arrieta

Zer **ardura din** hiri! - esan zuen aitak, gai hartaz hitz egiteko gogo falta nabarmenez. Anjel Lertxundi

Zer **ardura dizu** une honetan Leonek, Lupek edo hark izango duen zure haurrak? Hasier Etxeberria

Errukia sentitu nuen, erruki handi bat, zeren nire bizitzan lehendabiziko aldiz konturatu bainintzen nire hoztasunak **ardura diola**. Josu Zabaleta

Niri **ardura dit** ilbetetik ilbetera hartua bada. Pello Zabala

Oso gutxi **ardura didate** kontu publikoek. Matías Múgica

6 *ardura izan*[2] du *ad*

Gustatu egiten zitzaidan, liluratu egiten ninduen, eta hori gauza handia zen, hori zen benetan **ardura zuena**. Juan Luis Zabala

Taldeko emakume gazteena kantuan hasi zen, burua gorutik jaso ere egin gabe: Iruten ari nuzu, / kiloa gerrian, / **ardura dudalarik** / negarra begian. Anjel Lertxundi

Orobat pentsatu du aurrerantzean nahiko kezka eta **ardura izango** dituela emakumeak alabaren gaixotasunarekin, eta buruak aukera gutxi uzten duela horrelakoetan bestetarako. Imanol Zurutuza

Parisen, berehalako **ardura izan** nuen Williamsi deitzea, beroni neure informea hitzez bederen jakinarazteko; hark, ordea, egun on (hello) esan zidan doi-doi, eta astirik ez omen zeukala nire azalpena entzuteko. Joxe Austin Arrieta

Ardura duenaren belarri-ixkinan ez bada, mahai gaineko asmoen egitarau edo proiektuen artean hor egongo dira honako beste eginkizun hauek edo antzekoak aztergai. Pello Zabala

Eta lehen bezain lasai Otalorak, onartu nahi ez genuen hartan joz, "Zer **ardura dau** horrek?". Koldo Izagirre

Nafar-zuberotarrean aginteran zakitzat izan, lapurtarrean zazkiat, giputzean zakizkit, bizkaitarrean zakidaz, gutxi **ardura du**. Koldo Zuazo

Gaitzak, Vietnamgo ez dakit zer oilategitan ez, disimulurik gabekoa izan du iturburua: hasieratik ikerketaren **ardura izan** duen Ertzaintza bera. Iñigo Aranbarri

8 *ardura izan*[3] zaio *ad*

Ardura bazaizue, barran egongo naiz. Sonia Gonzalez

-Uste duk **ardura zaiola** inori, hik bere antzeko bat ezagutu izana? Koldo Izagirre

Baina Peterri, mutila zenez, bost **ardura zitzaizkion** itxurak, eta saltoka hasi zen, pozez zoratzen. Julen Gabiria

Baldin finitu ez bada, ez da, zuk usteko duzun bezala, abentura horretan jarraitzea **ardura zaidalako**. Jon Muñoz

9 *ardura izan*[4] da *ad*

Baina **ardura bazen** zerbait erauntsiren beldurra eta beraz ernatu behar zen, hor ere elgar lagunduz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Honen ondorioz, betidanik bere **ardura izan** ziren gai filosofikoak osokiago kristaugirotu ahal izan zituen. Imanol Unzurrunzaga

Gogoan izan zuen lanaren fruitua zuen bilobentzat dela soilik, eta zuen eginbeharra, zuen **ardura dela** ernamuin arriskutsurik ez uztea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hori nire **ardura duk**, behar ditiat eta kito. Jose Morales

10 *bost ardura izan*

Baina Peterri, mutila zenez, **bost ardura zitzaizkion** itxurak, eta saltoka hasi zen, pozez zoratzen. Julen Gabiria

11 *gizarte ardura korporatibo*

2004ko Asiako **Gizarte Ardura Korporatiboaren** saria jaso du GAIAk. Berria - Gaiak

12 *goi ardura* ik **probidentzia**.

Eta Jaungoikoaren **goi**-ardurak ez du horregatik desohorerik nozituko, bidegabekoak justiziaz tratatzen dituelako. Imanol Unzurrunzaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

antolatzeko ardura (19); **ardura bakarra** (26); **ardura bere gain** (39); **ardura berea** (7); **ardura berezia** (15); **ardura dela** (25); **ardura dira** (6); **ardura du** (26); **ardura duela** (8); **ardura duen** (45); **ardura duena** (13); **ardura dute** (16); **ardura duten erakundeek** (6); **ardura dutenak** (7); **ardura eman** (32); **ardura erakutsi** (7); **ardura ere** (29); **ardura**

erraiten (8); **ardura eskatzen** (6); **ardura ez da** (9); **ardura falta** (7); **ardura gehiago** (17); **ardura gehiegi** (6); **ardura gertatzen den** (8); **ardura gutxi** (6); **ardura guztia** (19); **ardura guztiak** (6); **ardura handia dute** (6); **ardura handiagoa** (11); **ardura handiarekin** (7); **ardura handirik** (14); **ardura hartu behar** (14); **ardura hartu du** (11); **ardura hartu duen** (7); **ardura hartu nahi** (7); **ardura hartu zuen** (27); **ardura hartu zuten** (6); **ardura hartuko** (16); **ardura hartzea** (15); **ardura hartzeko** (11); **ardura hartzen** (23); **ardura ikusten** (9); **ardura izan behar** (6); **ardura izan du** (6); **ardura izan zuen** (9); **ardura izango da** (19); **ardura izango du** (13); **ardura izaten** (6); **ardura nabarmendu** (7); **ardura nagusia** (52); **ardura nire** (7); **ardura osoa** (26); **ardura politiko** (7); **ardura politikoa** (25); **ardura politikoak** (14); **ardura xedea** (9); **ardura zaitez** (13); **ardura zaitezte** (9); **ardura zedin** (6); **ardura zeukan** (6); **ardura zuen** (23); **ardura zuena** (14); **ardura zuten** (20); **argitzeko ardura** (6); **arreta eta ardura** (9); **aski ardura** (10); **asko ardura** (8); **ateratzeko ardura** (8); **aurrera eramateko ardura** (7); **baina ardura** (17); **bainan ardura** (6); **baino ardura** (14); **baita ardura** (7); **baten ardura** (17); **batere ardura** (7); **bere ardura** (53); **beren ardura** (10); **bermatzeko ardura** (7); **beste ardura** (8); **betetzeko ardura** (8); **buruzko ardura** (8); **da ardura** (27); **da nire ardura** (10); **defendatzeko ardura** (6); **denon ardura da** (6); **dira ardura** (6); **du ardura hori** (8); **duen ardura** (19); **dut ardura** (6); **dute ardura** (14); **duten ardura** (16); **edo ardura** (8); **emateko ardura** (17); **erabakitzeko ardura** (6); **ere ardura** (21); **euren ardura** (14); **ez dio ardura** (25); **ez dit ardura** (11); **ez du ardura** (9); **ez zion ardura** (12); **gaineko ardura** (10); **gidatzeko ardura** (11); **gobernuaren ardura** (17); **gurasoen ardura** (6); **gure ardura** (24); **guztien ardura** (24); **guztion ardura da** (7); **haien ardura** (9); **hain ardura** (10); **hainbeste ardura** (7); **haren ardura** (29); **hartu zuen ardura** (15); **hartuko du ardura** (6); **heriotzaren ardura** (6); **honen ardura** (10); **hori ardura** (6); **horien ardura** (12); **ikerketaren ardura** (11); **izan zuen ardura** (7); **izanaren ardura** (6); **izateko ardura** (9); **jartzeko ardura** (8); **jokoaren ardura** (7); **kasuaren ardura** (7); **konpontzeko ardura** (7); **kudeatzeko ardura** (8); **lan egiteko ardura** (7); **lehen ardura** (9); **ordezkatzeko ardura** (7); **osoaren ardura** (7); **prestatzeko ardura** (11); **sailaren ardura** (14); **sartzeko ardura** (7); **saskiratzeko ardura hartu** (8); **segurtasunaren ardura** (7); **sortzeko ardura** (10); **taldearen ardura** (12); **zaintzeko ardura** (42); **zait ardura** (6); **zen ardura** (10); **zer ardura dio** (7); **zitzaidan ardura** (8); **zure ardura** (7); **zuten ardura** (9); **zuzentzeko ardura** (17)

ardurak ere (6); **ardurak hartu behar** (7); **ardurak hartzeko** (8); **bakoitzak bere ardurak** (7); **bere ardurak hartu** (8); **honetako ardurak** (7)

ardurarik gabe (39); **ardurarik hartu** (10); **ardurarik izan** (7); **batere ardurarik** (8); **beste ardurarik ez** (8); **ezeren ardurarik** (7); **inolako ardurarik** (9)

arduraz jokatu (9); **arduraz jokatzea** (10); **arduraz jokatzeko eskatu** (16); **zuen arduraz** (6)

---

ardura[2] *adlag* maiz, askotan.

Aski **ardura** izkiriatzen genuen elgarri. Marzel Etxehandi

Ez ezazula sinets mundu guzia, **ardura** gezurra erraten baitu. Aurelia Arkotxa

Pariseko azken boneta buruan dutela, burutik oinetaraino txal handi batean bilduta, farfailezko mantelina aurpegian, begiak apal, sartzen dira emakumeak hondartza betetzen duten oihalezko etxola horietarik batean; istantean jalgitzen dira aztal-has, **ardura** belaunez beheiti ez doan artile marroizko atorra hutsa soinean, eta algaratan doaz lasterka murgil egitera. Koldo Izagirre

Alta basoilar bat ez da hain **ardura** ikusten orain gure mendietan, legez gerizatua izanik ere! Michel Oronoz

Minitela baliatzen duten guziek badakite hori dela solasketa batean **ardura** egiten den lehenbiziko galdea. Janbattitt Dirassar

Horiek hola, ni ere, aitor dut, zakar eta hits **ardura**. Jose Angel Irigaray

Ez **ardura**, baina, noiz behinka gertatzen zitzaion. Eneko Bidegain

Ez dezaket hargatik erran, gaueko ibilaldi-ihesaldi horiek gozoak ez zirenik: tentsio handiko uneak bizitzen genituen, eta, **ardura**, aparkaleku abandonatu, anonimo eta zurpail argituetan trukatu hitz ahulek gure izpirituak garbitzen zituzten, itsas aldetik mehatxuz zetozen eurien gisa. Itxaro Borda

Ez niz **ardura** etortzen Baxenafarrerat. Menane Oxandabaratz

---

ardurabako *izond* arduragabea.

Bere literaturari ere ukitu hori eman dio, eta nire prosarako jarrera **ardurabako** hori jaso du. Berria - Kultura

Ez ziren inoiz bat etortzen eta azkenean, berandu samar beti, jadanik estudiante **ardurabakoak** ez ginela eta hurrengo goizean lan egin beharra geneukala gogoratzen zitzaigun. Jon Arretxe

---

arduradun 1 *iz* zerbaiten ardura duen pertsona.

Erien **arduradunei**, gaixotasun hura sendoen erdialdekoaren eta Rohango Damaren baitan errotu zela iruditzen zitzaien. Agustin Otsoa

Dekorazioaren **arduradunari** deituko dio berriro, bere izenaz: Josu Zabaleta

Eugin bildu esperientzia baliatu zuten arras ontsa Orbaizetako olaren eraikitzeko eta ibilarazteko, Rostaing **arduradunarekin**, zeinak Eugiko olaren segida eraman baitzuen urte parrasta batez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ebakuazio eremu eta udaleku urrunenetan ere andereñoak, elizgizonak, **arduradunak** bazirenez, etxeko ohiturei eusten ahalegindu ziren kolonia haietan (eskolak, euskal dantzak, erlijioa...), gerraren oldarrak erroak suntsi ez ziezazkien. Jokin Urain

Zeren eta horren estrukturaz ebaluaketa bat egin dute ministeritzako **arduradunek**, ondorioak txosten batean, uste dut, Bordaleko errektoreari emanak izan zaizkiola, eta horien ondotik beraz dugu bilkura hori. Menane Oxandabaratz

Baina hirian bazegoen arazo bat estorninoekin, eta zita egina zeukan udaleko parkeen **arduradunarekin**. Jon Alonso

Anton dauka bere ondoan, Basauriko **arduraduna**; behatz batekin ilea oharkabean kizkurtzen, ohi bezala. Rafa Egiguren

Ni naiz **arduraduna** eta nik egiten dut txostena. Iñaki Zabaleta

Haiek errietak geltokiko **arduradunarenak**! Juan Kruz Igerabide

- Bai, egun hartan motorren **arduradunak**, Roblesek zera esan zidaan, bizpahiru ordu gehiago sartzeko, hurrengo egunerako tren bat prest egon behar zelako, eta nik baietz, ez zidala larregi inporta. Paddy Rekalde

-Hala nahi badu, gizona denaren **arduraduna** da. Patxi Zubizarreta

Arduraduna ere mintzagai izan dugu, gaur harrituta egongo zen ziur aski, beharrean inor ere azaldu ez denean. Urtzi Urrutikoetxea

Aitaren langileen **arduradunarekin** ezkondu eta harategi bat ireki zuen Spring Gardens ondoan. Irene Aldasoro

Gogoan harturik Frantzian 2000 urtea handikiro ospatzen dihardutela, egitarau berezi baten bidez hain zuzen, ez nengoke lar oker aristokrata aireko emakume gaztea ekimen horren **arduradunetakoa** dela esango banu. Edorta Jimenez

Ni ez naiz tristura horren **arduraduna**, baina bizitza osoa daramat nondik datorkidan jakin guran, ibai arre eta lingirdatsu horren sorburua noraino iristen den irudikatu nahian. Pako Aristi

Lehengusuak burua atera zuen taxiaren leihotik eta polizia bati esan zion deitzeko elizako **arduradunen** bati, eta **arduradunak** esan zien Lloyd doktorea ez zegoela han eta zain zeuzkatela senargaia eta haren lekukoa. Koro Navarro

Transmisioen **arduraduna** ninduan. Karlos Zabala

Ni naiz HKBen **arduraduna**; egunean 24 orduz prest egon behar dut. Juan Kruz Igerabide

Zu ez zara ekintza honen **arduraduna**. Patxi Zubizarreta

2003 honen hasieran berriro jo nuen harengana, Egunkaria-ren itxiera eta bertako **arduradunen** atxiloketa gertatu berritan, hain zuzen ere. Agurtzane Juanena

Laguntzeko xedea agertzen zidan bai **arduradunak**. Itxaro Borda

2 (izenondoekin)

Literatur lantegiak modan omen daude, eta, Iturrinoren ustez, horrek erakusten omen du Dontsu Etxeko **arduradun** nagusiaren garaikidetasun noranahitarra. Anjel Lertxundi

Dallasko Herriko Etxetik ateratzen ari ziren hautetsi eta lekuan lekuko **arduradun** politikoak agurtu zituzten, hirian zeharreko ibilaldiari lotzear. Itxaro Borda

Baina ez zuen agerian aldarrikatu bere judutartasuna, eta predikari gisa Genevara joan zelarik, ikastetxeko **arduradun** nagusi egin zuten, hots, ministro esaten zaiona. Juan Martin Elexpuru

Badirudi hori gertatu dela, kontuan hartzen badira **arduradun** politikoek behin eta berriz gai honen inguruan egin dituzten adierazpenak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Presoak urrutiratzea, sakabanatzea, bakartzea eta setiatzea helburu zehatzekin egindako lanak dira, eta **arduradun** ezagunak dituzte, bulego jakinak. Jokin Urain

Orain milaka iheslari pilatzen dira Perpinyako mugan, haien artean euskaldun anitz; izan ere, horrexegatik ez dago orain gurekin Lasarte, gure **arduradun** teknikoa. Alberto Ladron Arana

Vermonteko Burlingtondik hurbil zegoen trenbidea egiten ari zen langile talde bateko **arduradun** trebea zen Gage, eta istripu bitxi bat izan zuen 1848an. Xabier Olarra

Familia bera da, beraz, hilketa honen **arduradun** zuzena. Hasier Etxeberria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta lanak ere zehaztu ditu: sukaldari, zuzendari, finantza-**arduradun**, psikologo eta auto-gidari (susmoa, beste lanbideren bat ahaztu ote zaien). Arantxa Iturbe

Nazio Batuen Erakundeko segurtasun **arduradun** Tun Myat bere kargutik kendu zuen herenegun, NBEko idazkari nagusi Kofi Annanek. Berria - Mundua

Alabaina, politikarien edo kultura **arduradunen** ahoetarik isurtzen zen hitz horrek, kolonialismoaren samin gustua zeukan enetako, hainbatetan gaitzetsi lehenagoko "jasankeriaren" beste apaindura bat zen, hots. Itxaro Borda

Hamaseietarik zortzi hoberenak hautatuko zituen Patxi ATEko logistika **arduradunak**. Itxaro Borda

4 *erdi mailako arduradun*

IBMk duela zenbait urte enpresako goi arduradunen artean egindako ikerketa batek hauxe argitu zuen: kargu horiek euren lan orduen %78a komunikazioarekin zerikusirik zuten zereginetan ematen zutela, bai hornitzaileekin, bai enpresako **erdi mailako arduradunekin**, bai politikoekin edota beste enpresariekin hitz egiten. Txema Ramirez de la Piscina

5 *goi arduradun*

Irakeko Barne Ministerioko **goi** arduradun bat eta haren bi bizkartzain hil zituen atzo erresistentziak Bagdaden.

Saddam Hussein eta haren aginteko beste **goi** arduradunak. Berria - Mundua

Gutunak saileko **goi** arduradun baten sinadura darama. Pello Salaburu

IBMk duela zenbait urte enpresako **goi** arduradunen artean egindako ikerketa batek. Txema Ramirez de la Piscina

Etikarik gabeko portaera honek krisi larria eragin zuen NYT kazetan [...]: bost **goi** arduradunek dimisioa eman zuten. Txema Ramirez de la Piscina

Geneak dira, garbi, animaliaren eraikuntzan **goi**-arduradun. Juan Garzia

6 *merkataritza-arduradun*

Espainiako Ekonomia eta Merkataritza Bulegoko **merkataritza arduraduna**. Berria - Ekonomia

LABeko **Merkataritza arduradun** Angel Miragaiaren hitzetan. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

arduradun bat (27); **arduradun batek** (56); **arduradun batzu** (11); **arduradun egin** (11); **arduradun gisa** (16); **arduradun iñaki** (11); **arduradun nagusi** (38); **arduradun nagusia** (38); **arduradun nagusiak** (28); **arduradun politiko** (17); **arduradun politikoak** (14); **arduradun politikoek** (17); **arduradun zen** (12); **ccooko arduradun** (11) elako arduradun (21); **elako arduradun emilio** (16); **goi arduradun** (44); **goi arduradun batek** (15); **herri arduradun** (11); **horren arduradun** (15); **komunikazio arduradun** (25); **navaleko elako arduradun** (13); **saileko arduradun** (16); **segurtasun arduradun** (20); **taldeko arduradun** (16)

---

arduragabe 1 *izond* pertsonez mintzatuz, ardurarik ez duena.

Garai hartan, klerikoak zabar eta **arduragabe** ziren maiz Jainkoaren Hitza iragartzerakoan nahiz Eukaristi sakramentua ospatzerakoan. Askoren artean

Beste batzuk hizkera **arduragabeetan** gertatzen dira, baina gainditu egiten dira hizkera zainduetan, enfasia ematen zaionean esanari, zerbaitegatik ahalegin berezia egiten denean: hor sortzen da aldagarritasun fonoestilistikoa. Lourdes Oñederra

Hitzen jolas kontzientean ibili aurretik, tartetxo bat egingo diogu nahi gabe eta oharkabean helduriko anbiguotasunari, idazkera **arduragabe** bati zor diona. Iñaki Arranz

Gizakiaren estereotipoak dira, oso ironia zorrotzez eta gupidarik gabe begiratuak; hor aurkituko dugu lurjabe zabar **arduragabea**, etxekoandre goganbehartsua, gazte festazale txoriburua, lurjabe zekena, administratzaile alferra, funtzionario ustela, agintari zorrotz errukigabea, aberats okitua, burokrata grisa... Jose Morales

Mutil serioa zen Doran jauna, ez **arduragabea** eta ahoberoa, besteak bezala. Irene Aldasoro

Izan ikara, **arduragabeok**! Egin dardara, axolagabeok! Erantzi, kendu soineko horiek, eta estali dolu-jantziz. Elizen arteko biblia

ardu *izlag* arduragabea.

ATEAk, Animalien Tratu Etikoaren Aldeko Elkarteak, ehundik gora gutun bidali dizkie Arabako politikariei, **«arduragabeko** herritarrek» baztertuta utzitako animalien «egoera samingarria» dela salatzeko. Berria - Euskal Herria

Emantzipazio espiritualaren krisi heleniko horretan, Olinpoko panteoi barbaroaren **arduragabeko** moraltasunik ezarekiko atsekabea eta odolaren eta lurraren kultu "ktonikoek" ustiatzen zuten bizitza erlijiosoaren geruza espiritualki sakonagoa. Iñaki Mendiguren

Angel, zorion **arduragabeko** ahotsaz latinez kantatzen zihoan. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

arduragabe bati (2); **arduragabe batzuk** (2); **arduragabe bizi** (2); **arduragabe deitu** (2); **arduragabe hartzea** (2); **arduragabe hutsak** (2); **arduragabe jokatu** (4); **arduragabe jokatzea** (2); **bezain arduragabe** (2); **diren lekutik arduragabe** (2); **guztiz arduragabe** (2); **hain arduragabe** (2); **jarrera arduragabe** (2); **lekutik arduragabe** (2); **lekutik arduragabe hartzea** (2)

---

arduragabekeria 1 *iz* ardurarik eza, axolagabekeria.

-Arduragabekeriak eraman zaitu horretara. Joxan Elosegi

Zuen **arduragabekeriak** neure onetik ateratzen nau! Karlos Linazasoro

Denboraren jabegoarekin **arduragabekeria** handia egin dugula iruditzen zait: gauzarik pertsonalena besteen esku utzi dugu, eskumen pribatu bati mendekotasun publikoa ezarri diogu. Pako Aristi

Une batez, irakurle argiei zuzendutako nire arrazoiketak eten beharrean naiz, behin betikoz atea itxi nahi baitiet **arduragabekeriaren** hutsegiteei, edo bekaizkeria gaiztoaren gezur-irainei. Juan Martin Elexpuru

Zeren, testamentuaren azken orrian oraindik antzematerik izan ez zuen arrazoiren bategatik, ontziratu aurretik etxea arretaz itxi zuen, atean giltzarrapoa jarrita, baina **arduragabekeria** barkaezina zela medio, kanila bat zabalik ahaztu zuen. Bego Montorio

Kontrako norabidean, kemen gehiegi izateak zuhurtasunik eza, **arduragabekeria** eragin ditzake, eta horrenbestez beste bizio batean eroriko gara. Askoren artean

Bere batean, karga astunegirik gabe edo lasai antxean bizi denari, **arduragabekeriaren** lozorro arriskutsuan hila bezala datzala ohartarazi behar zaio, arduratzen has dadin arduratu behar duen orotaz. Iñaki Segurola

Hortik gutxira, baina, haren aurpegiera aldatuz joan zen, gure itxurazko **arduragabekeriaren** ondorioz. Jon Arretxe

Gizarte zaurgarritasuna eta degradazioa, munduko politikan zuzentasunarekiko erakutsi **arduragabekeria** sistematikoaren ondorioz, kezka handiena eragiten duten faktoreetako bat da gaur egun. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

2 *iz* arduragabetasunak eraginiko egite gaitzesgarria.

Gogotik ahalegintzen zen neska estutasunean jar zezakeen ezein **arduragabekeriarik** ez egiten. Jose Morales

1973an -desesperaturik ordurako aurrera ez nuela egiten ikusirik- berebiziko **arduragabekeria** egin nuen. Xabier Aranburu

Lehen, gauerdira arte egoten ziren berbetan gelako atea itxita, eta Augustinek zin eginarazi zion horrelako **arduragabekeriarik** ez zuela berriz egingo. Karlos Zabala

Arduragabekeria handia izan zen, baina jeneral hark suerte ona izan zuen, zeren lehenago bota izan balu Elizondora ailegatu eta biharamunean bota zuen elurtea, osteen erdiak elurretan geratuko baitziratekeen. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

agintarien arduragabekeria (2); **arduragabekeria baliatu** (2); **arduragabekeria barkaezina** (2); **arduragabekeria da** (3); **arduragabekeria egotzi** (2); **arduragabekeria erakusten** (2); **arduragabekeria galanta** (3); **arduragabekeria handia** (8); **arduragabekeria handia litzateke** (4); **arduragabekeria hutsa** (2); **arduragabekeria itzela** (2); **arduragabekeria izan** (5); **arduragabekeria izango litzateke** (2); **arduragabekeria izugarria** (2); **arduragabekeria kriminala** (2); **arduragabekeria kriminalarekin** (2); **arduragabekeria larri baten** (2); **arduragabekeria leporatu** (4); **arduragabekeria leporatuta** (2); **arduragabekeria litzateke** (9); **arduragabekeria litzatekeela** (2); **arduragabekeria politiko** (5); **arduragabekeria politikoa** (4); **arduragabekeria politikoa salatu** (2); **arduragabekeria salatu** (4); **bere arduragabekeria** (2); **espainiako gobernuaren arduragabekeria** (2); **gobernuaren arduragabekeria** (3)

---

arduragabeki *adlag* modu arduragabetsuan.

Zer abantaila dut nik, hortaz, **arduragabeki** aurrerantz dihoazenekiko? Karlos Linazasoro

Mauserrak sorbaldatik zintzilika zeramatzaten, **arduragabeki**. Alberto Ladron Arana

Alabaina, Abasen "seguruago egongo gara..., iluntzen ari du eta" hitzek durunditu egin zuten Hamidaren baitan, eta neska ohartu zen **arduragabeki** jokatzen ari zela jendearen begien bistan. Patxi Zubizarreta

---

arduragabetasun *iz* ardurarik eza, egitekoekiko ohartasun falta. ik **arduragabezia**.

Eta, hau hala izanik ere, Naturarenganako ardura sozialaren oinarria **arduragabetasunaren** emaitza zuzentzat ulertu beharradago. Berria - Gaiak

Gorpua uretara jaurtikitzeko unean, konturatuko zen noski bere **arduragabetasunaz**; baina orduan ez zuen erremediorik. Koro Navarro

Liburutegi baten jabe den orok bezala, berea azkeneraino ez ezagutzearen errua zeraman Aurelianok bere baitan; auzi hark bide eman zion ordura arteko **arduragabetasuna** aurpegiratzen edo zion liburu askorekikoa egiteko. Juan Garzia

---

arduragabetu, arduragabe(tu), arduragabetzen da/du *ad* ardura galdu, arduragabe bihurtu.

Eta gero, harrapakina amaitu artean, egun batzuetan edo astetan, erabat **arduragabetzen** da. Ander Irizar

Aldi horretan, neskaren ahizpa manaerrazek aitaren aberastasunaz gozatu ahal izan zuten **arduragabeturik**. Jon Arretxe

Gizon heldua da, nik uste, berarengan maite duzuna: gizon heldua, bere gainbeherara adoretsu doana, eta, bere buruaz **arduragabetu** nahi ez duelako, itxura zaintzen duena. Monika Etxebarria

---

arduragabezia *iz* ardurarik eza, egitekoekiko ohartasun falta. ik **arduragabetasun**.

Giltza ia edonoren esku egotea berez **arduragabezia** handia bazen, are handiagoa halako material arriskugarriak han bertan gorde izana. Iñaki Iñurrieta

Deus ere ez da finkoa izango, dena ezegonkorra, dena konbultsiboa, eta dantza egitea erraza izango da musikaren zaratotsak aginduriko **arduragabezia** argi horrekin. Joseba Sarrionandia

Ziarretaren iritzi, Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako gobernuburuak atzera egin du bere hitzetan eta "**arduragabezia** handia erakutsi du. Berria - Ekonomia

Delitugileak atxilotzen ditu, ez epai ditzaten, bera epai dezaten baizik, eta hartara zera lortzeko, ekintzaren zer-nolakoetan argi eginez bere **arduragabezia** susmoa ezaba dadila. Iñaki Iñurrieta

---

arduragarri *izond* arduratzea merezi duena.

Arduragarria eta etsigarria da oro har arrazoimen hutsaren antitetika bat egotea eta gatazka ororen epaimahai gorena ordezkatzen duen arrazoimena bere buruarekin gatazkan gertatu beharra. Ibon Uribarri

Izan ere, eta paradoxikoa dirudien arren, arrisku **arduragarrienak** dira sozio-politikoki asimilagarrienak direnak. Berria - Gaiak

---

ardurako[1] *izlag* ardura duena, garratzizkoa. ik **ardurazko**[1].

Bestalde, etekin handiagoa aterako zuen, nire ustez, Yumimoto konpainiak balios gerta litezkeen alorretan **ardurako** lanpostuak atzerritarren gain utziko balitu". Joxan Elosegi

Sokoako paperen auzian lortutako informazioak eta Juan Manuel Soares Ganboak egindako deklarazioek "frogatu zuten" Etxebestek **ardurako** zereginak zituela ETAn, epailearen ustez. Berria - Euskal Herria

---

ardurako[2] *izlag* ohikoa. ik **ardurazko**[2].

Han eritzen da haur hori, emeki emeki hiltzera doha; eta medikuek diote ez dela harren eritasuna **ardurako** gaitzetarik, bertze zerbait minek diotela kalte egiten. Xipri Arbelbide

Etxalde aipatua zen Garaten sortetxea, Pikasarria, eta jendeen aho-mihitan Pikasarri zen beti haren **ardurako** izena. Xipri Arbelbide

Berriz hona itzultzekotan banoa lan leku **ardurakora**. Piarres Aintziart

Ibiltzean ez dago pentsamendu edo sendimendu **ardurakorik**: gorputza bere indar goxoan, burumuina bere lan kementsuan ari dira ari alkimia aberats batean gauzak itzulikatzen, sukarraren kaldatik beretik, nork daki, argi zerbait atera dadin. Piarres Aintziart

---

arduralaritza ik **administrazio**.

---

arduraldi 1 *iz* lan batean egunean ematen den denbora.

Erabateko **arduraldiak** giza garapena trabatzen duela salatu zuen Marxek. Berria - Gaiak

Izan ere, EHUn ez bezala, irakasle kontratatuen kopurua funtzionarioena baino garaiagoa da, eta gainera, zatiko **arduraldia** dute horietako askok. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

2 *bete-beteko arduraldi* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Zelibatua ezin eskertuzko aberastasun gisa ulertu behar da, Kristorenganako **bete-beteko** arduraldia erakusten duelako. ETC-prentsa

Irakasle asoziatuaren eredua mantentzearen aldekoa da, eta gaur egun **bete-beteko** arduraldia dutenak birkokatzea proposatzen du. ETC-prentsa

Bete-beteko arduraldia da gurea, eta, gainera, gure zailtasunak gehitu behar dizkiogu horri. ETC-prentsa

3 *erabateko arduraldi*

Erabateko arduraldiak giza garapena trabatzen duela salatu zuen Marxek, Hegelen alienazio kontzeptua egokitu, nork bere burua zaintzeko denbora librerik ezean garapenik ez dagoela alegia. Berria - Gaiak

4 *zatiko arduraldi*

Izan ere, EHUn ez bezala, irakasle kontratatuen kopurua funtzionarioena baino garaiagoa da, eta gainera, **zatiko arduraldia** dute horietako askok. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

arduran *(corpusean ez dago; ETCn **71** agerraldi)* *adlag* maiz, askotan. ik **ardura²**.

Andrazkoak eta gertuko ahaideak zabiltzan **arduran** lanpetuta: intsentsua, kolonia, kotoia... ETC-literatura, saiakera

---

arduranean *adlag* maiz, askotan. ik **ardura²**.

Japoniako tatuaje klasikoa irudi batzuek osatzen dute **arduranean**, kondairako heroiak eta erlijio irudiak. Javi Cillero

---

ardurape *iz* ardura.

Horiek beste agintari baten **ardurapera** pasatzean krisia saihestezina izango da", esan zuen Sergei Markov adituak. Berria - Mundua

Pasadizo horren ondorio sozialak gure **ardurapetik** kanpo geratzen dira. Koro Navarro

Erregearen dekretua aldarrikatu zenean, neskatxa asko eraman zituzten Susa hirira, Hege emakumezainaren **ardurapera**. Jose Antonio Mujika

---

ardurapean *adlag* arduraren mendean.

Prokuradore ospetsuak **ardurapean** utzia zion eskualdetik jendeen ihesaren gelditzeko gaitasunik ez zuela ukan leporatu zion. Elena Touyarou

Ehun baino gehiago ziren Hansek, partaide gisa lehendabizi eta bere **ardurapean** ondoren, egindakoak. Hasier Etxeberria

Tzarko eta bere talde politikoaren **ardurapean** zegoen gizarte sozialaren gorputzaren kilikatzeko betekizuna. Itxaro Borda

Esaiozue bera izango dela aurrerantzean Paradisuko Uraren zaindaria nire partez, eta bere **ardurapean** egongo dela bidaiari egarrituei ur hori oparitzea nire izenean. Jon Arretxe

Gutun honen bidez, zeuen errege izanaren ondorengoak zeuen **ardurapean** dituzuela jakinarazten dizuet; bai eta gudu-gurdi, zaldi, hiri gotortua eta armak ere. Elizen arteko biblia

Etortzeko diren urte on horietan, janari ugari jaso eta bil dezatela zure **ardurapean**, eta hirietan gorde. Elizen arteko biblia

Meharraren gorputz erdi-hila zaindariaren emaztearen **ardurapean** utzi eta kamioian sartu ziren. Koldo Biguri

Historiak amaiera zoriontsua izango du, Don Kijotek bere **ardurapean** hartuko baitu gaztelua (benta) zaintzea, etorri berrien zoriona bete-betea izan dadin. Patxi Ezkiaga

Berari halako altxorrak utzi Grosrouvrek beraren **ardurapean**, eta hara non lapurtu egiten zizkioten. Jon Muñoz

Horrek guztiak iheslariak ugaritu zituen, eta nik gero eta lan gehiago nuen Anghiosek nire **ardurapean** uzten zituen juduekin. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ardurapean dago** (8); **ardurapean dagoen** (3); **ardurapean diren** (5); **ardurapean egon** (9); **ardurapean egongo** (4); **ardurapean geratu** (3); **ardurapean izan** (3); **ardurapean jarri** (8); **ardurapean jarria** (3); **ardurapean jarriak** (5); **ardurapean jarriz** (3); **ardurapean utzi behar** (3); **ardurapean uzten** (4); **ardurapean zegoen** (4); **ardurapean zeuden** (6); **baten ardurapean** (10); **beraren ardurapean zegoenean** (3); **bere ardurapean dituen** (6); **bere ardurapean hartu** (4); **beren ardurapean** (12); **emakumeen ardurapean** (3); **foru aldundiaren ardurapean** (3); **gure ardurapean** (3); **haren ardurapean** (3); **ministerioaren ardurapean** (3); **neure ardurapean** (3); **nire ardurapean** (7); **ren ardurapean** (4); **santuaren ardurapean** (3); **zeure ardurapean** (4); **zure ardurapean** (6)

---

ardurapeko *izlag* ardura baten mendekoa.

Horixe esan zuen Callejak, Zarraoa eta Amatiñoren **ardurapeko** editorea zenean. Hasier Etxeberria

Horiek ez dira nire **ardurapeko** kontuak. Agustin Otsoa

Juvenalia, alaba bakarra, Varsoviara eramana zuen aspaldi, hamalau urte betetakoan, noblezia txikiko seme-alabentzako ikastetxe batera, mojen **ardurapekoa** bera. Felipe Juaristi

Haurrak gosaltzera jaitsi baino lehen mahaiak prestatu, nork bere **ardurapeko** taldearena: katilua-koilara-galletak, katilua-koilara-galletak, katilua-koilara-galletak... Xabier Mendiguren Elizegi

Hilabete haien jiran, etsi-etsian ahalegindua nintzen irakasle bat edo besteren **ardurapeko** ikasle postua lortzen. Juan Garzia

Zer moduz dago Miss Cardew, hire **ardurapeko** damatxo gazte hori? Antton Olano

"Federiko II.a Inozentzio handiaren, Eliza Estatu bezala sortu zuenaren, **ardurapeko** eta ikaslea izan zen. Iñaki Mendiguren

Browne jaunak alde hartara zuzendu zituen bere **ardurapekoak** eta, txantxetan, emakumezkoentzakoa omen zen pontxe bero indartsu gozo bat hartzera gonbidatu zituen denak. Irene Aldasoro

Bere **ardurapeko** orrialde bat brastakoan betea zuelako, beharbada. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere ardurapeko** (11)

---

arduratan *adlag* kezkatuta.

Ez zuen maite amari gezurrik esatea, nahikoa entzun zituen bizitzan zehar, baina oraindik gutxiago ama **arduratan** ibiltzea. Unai Iturriaga

---

arduratasun *iz* ardura izatearen nolakotasuna.

Garaiko Mendebaldeko merkataritza-publizitatearen praktika, bere inbertsiogintzaren ugaritasunean eta "merkatu-ikerketaren" **arduratasunean**, propaganda komunistak nekez gainditu bazezakeen ere, desberdinak eta garrantzitsuagoak ziren emaitzetara jo zuen, eta bai lortu ere. Iñaki Mendiguren

Horietan hiru ezaugarri errepikatzen dira: gorroto tribala, ideologia bati atxikimendu itsua, **arduratasun** pertsonal gutxitua. Askoren artean

Haren irribarrea iraingarri zitzaidan, laneko gauzetan, birritan aipatu dudan bezala, **arduratasun** pertsonifikatua bainaiz. Joxe Austin Arrieta

Bi izebek ere gogoz barre egin zuten, Gabrielen **arduratasuna** olgetagai jakina baitzen beren artean. Irene Aldasoro

---

ardurati *izond* arduratsua.

Azal zurbileko mutil **ardurati** hark bizitzari buruz zeukan ikuspegia gurea ez bezalakoa zen aldi hartan. Jon Arretxe

Askatasun honi dagokio era berean norbere pentsamenduak eta norberak konpondu ezin dituen zalantzak publikoki juzgaketarako aurkeztea, hau egiten duena hiritar

arduratu eta arriskutsutzat jo izan behar gabe. Ibon Uribarri

Hain esaneko, on, **arduratu** eta jaieratsua, eta gainera hain bakezale, hain zerbitzari eta bertutezko egintza guztietara hain emana, non lehen familia guztia asaldatzen zuen bezala, orain guztien poz eta kontsolazio bihurtu zen, eta oso maite zuten guztiek. Askoren artean

---

arduratsu 1 *izond* pertsonez mintzatuz, ardura agertzen duena.

Enplegatu **arduratsua** izanik, B. jaunak ahal zuen guztia egiten zuen Produktua saltzeko, baina eguneroko borroka hark familiari eskaini nahiko zizkion uneak irensten zizkion. Eskarne Mujika

"Sukaldean jartzeko... " errepikatu diote hamar-hamabi urteko neskatoek, erdi lolita limurtzaile, erdi etxekoandre **arduratsuaren** doinu eta imintzioz. Xabier Mendiguren Elizegi

Nazioak jende **arduratsuen** beharra badik. Elena Touyarou

Kasu horretan, beraz, neba-arrebekin jarraituko zuen bidaian, eta nor topatuko zuten haiek hura baino gidari zuhurragorik, nor hura baino lagun **arduratsuagorik**? Karlos Zabala

Beti jakin ei du mutil bizkorra naizela, sentimendu sakonak dauzkana eta **arduratsua**, eta horrek apur bat kontsolatzen omen du hainbeste atsekaberen artean. Urtzi Urrutikoetxea

Neska umezale eta **arduratsu** bat hartuko dugu, zuri gustatzen zaizkizun horietakoa. Patxi Iturritegi

2 (adizlagun gisa)

Horrelakorik berriro gerta ez dadin, erantzun arrazistak gerta ez daitezen, «agintariek, alderdi politiko guztiek eta hedabideek» **arduratsu** joka dezaten eskatu zuen Kherkharrek. Berria - Euskal Herria

Gurago dut telebistan trajez jantzita hain dotore, hain txintxo eta hain **arduratsu** agertzen direnetako zein den ez jakin. Sonia Gonzalez

Askoz **arduratsuago** zebilen ordurako Alkimista, gatazka bortitzenen ingurunera hurbiltzen ari baitziren. Xabier Aranburu

Lumatxo batzuk ageri ditu sorbaldan, enplegatuak **arduratsu** astindu dizkio. Koldo Izagirre

-Oi! Ez begiratu hain **arduratsu**, ez da tragikoa. Monika Etxebarria

3 *izond* gauzez mintzatuz, ardura handia eskatzen duena.

Kazetaritza **arduratsuaren** bindikapena izan da borrokaldi bakoitza. Iñigo Aranbarri

Horretaz gain, kaleak ez ixteko, dendei ez erasotzeko eta modu **arduratsuan** jokatzeko ere eskatu zuten erakundeek. Berria - Mundua

Gehiago oraino, 1971ko apezpikuen sinodoak aitortu zuen gaurko munduan jokatzen diren indar-joko ezberdinei buru egiteko nazionalismo **arduratsu** batek emaiten diola nazioari bere nortasunaren onartarazteko behar duen indarra. Piarres Xarriton

Nork ez daki Zizeronek behin eta berriz baieztatu zuela gizakiak ezin duela deus ziur jakin eta jakintsuak egin dezakeen gauza bakarra egiaren arakatze **arduratsua** dela, zeren zalantzazko gauzei baiezkoa emango balie, nahiz eta deskuiduan egiak izan, ez litzateke erroretik libratuko, eta hauxe dela, hain zuzen ere, jakintsuaren akats nagusia? Imanol Unzurrunzaga

4 ***kontsumo arduratsu***

Helburu zehatzak: 14 helburu zehatz jasotzen dira, hona hemen batzuk: **kontsumo arduratsua** eta ekologikoa bultzatzea; gaikako bilketaren aldeko apostua egitea... Berria - Euskal Herria

Izan ere, antolatzaileen arabera, hiru eguneko topaketak " **kontsumo arduratsuarekin** kezkatuta daudenak» bilduko ditu. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aldundiari arduratsu** (2); **aldundiari arduratsu jokatzeko** (2); **antsiatsu eta arduratsu** (2); **arduratsu agertu** (3); **arduratsu aritzeko** (3); **arduratsu izan** (3); **arduratsu jokatu** (2); **arduratsu jokatzea** (2); **arduratsu jokatzeko** (6); **arduratsu jokatzeko eskatu** (4); **beti arduratsu** (3); **eskubideaz arduratsu agertu** (2); **gobernu arduratsu** (2); **hain arduratsu** (4); **zuhur eta arduratsu** (3). arduratsua izan (3); **arduratsua zen** (4); **bere zerbitzu arduratsua** (2); **jarrera arduratsua** (2); **jokabide arduratsua** (2); **oso arduratsua** (4); **zerbitzu arduratsua eskainiz** (2); **zuhurra eta arduratsua** (2)
>
> **etorkizuneko gizartearekiko arduratsuak** (2)
>
> **modu arduratsuan** (3)

---

arduratu, ardura(tu), arduratzen **1** da *ad* ardura hartu.

Erakundeko beste kide bat **arduratu** behar zen hartaz, hasieran, baina azkeneko momentuan gaixo jarri zen, eta nik ordezkatu behar izan nuen. Iban Zaldua

Halaz guztiz, gogoz kontrako dohain horrek bazuen oinarrizko akats bat; zeren eta jainkosa gutiziatsuak ahaztu egin baitzuen olinpiarren hilezkortasuna betiko gaztetasunarekin batera izaten zela, eta beste hilezkorrak eskatutakoa soilik emateaz **arduratu** ziren maltzurkeriaz. Iñaki Mendiguren

Harrezkero, neu **arduratu** nintzen dendaz. Javi Cillero

Dirua han zuten guztien Aitajaun izendatua zuen bere burua, nonbait, eta haietaz **arduratu** eta dirua aurrerarazten zien, harik eta etxea erosten zuten arte, eta ez zegoen bat bakarra ere bankuan dirutza galanta ez zeukanik. Xabier Olarra

Nire lana argitaratzeaz **arduratu** beharko nuen orain. Xabier Mendiguren Elizegi

Ia bazkari osoa papertxo batean idazten eman du, azpilekoaz **arduratu** barik. Koldo Izagirre

Bedeinkatua izan bedi zutaz **arduratu** dena! Jose Antonio Mujika

Bere dibortzioaz **arduratu** zen abokatuarekin hitz egiten du. Oskar Arana

Ingalaterra, adibidez, Irlandako nazionalismoari apur bat amore emanagatik, aitzineko mendeetan eraikia zuen Indietako inperioa oso-osorik begiratzeaz **arduratu** zen. Piarres Xarriton

Deus **arduratu** gabe. Joxe Azurmendi

Bigarrenik, zuri, Mr. James, entregatuko dizut originala eta zu **arduratuko** zara fotokonposaketa eta inprimategiaz. Iñaki Zabaleta

Eta gurekin zihoan morroiari, zeinak ni zaintzeaz eta begiratzeaz **arduratu** behar baitzuen, erran zion: Joan Mari Irigoien

-Bai, badakit -esan nuen nik-, kontsignazio orriaren eske etorri zara; aziendaz **arduratzen** zara. Fernando Rey

Baina inor ez zen **arduratzen** ganbaran ahaztutako bilduma haietaz, eta, beraz, inor ez zen konturatuko. Juan Kruz Igerabide

Hala, medikuari deitu zioten; hartu zion honek pultsua eta ez zen asko-askorik poztu; ez zitzaion gauza ona zenik iruditu; hala, arimaren osasunaz, badaezpada, **arduratzeko** esan zion, gorputzarenak arrisku txarra zeukala eta. Patxi Ezkiaga

Eleza har haien garaietan, zeruko indarrak, gizakiak bezain errukarri, munduko gorabeherez **arduratzen** ziren, eta Noraren aitak ere jainkozko ukitu batek jainkotutzat zeukan bere burua. Anjel Lertxundi

Ekintza hauetaz **arduratzen** diren begiraleek eta gainerako langileek, berriz, hizkuntzaren aldetiko prestakuntza eta gaitasun berezia izan behar lukete. Koldo Zuazo

Damianek promes egin dio, bera **arduratuko** dela Leonen familia etorri baino lehen aspiradorea etxe osoan pasatzeaz. Hasier Etxeberria

Egoitza sartzean bezeroei ongi etorria egiteaz **arduratzen** ziren langile xarmant horiek agian jakingo zuten! Ramuntxo Etxeberri

- Errak, haren karrikatik pasatzen **arduratuko** gaituk ez, ikusteko dena ongi dabilanez? Itxaro Borda

Kategorikoki erantzun zidan: estomatologoak ez dira urdailaz **arduratzen**, ahoko infekzioez baizik. Joseba Urteaga

Sorpresa bat eman nahi zion, eta berriro ere etxeko gauzez **arduratzen** zela erakutsi. Patxi Iturritegi

Kapitaina hurbildu eta, bertze norbait iganarazi behar izanez gero, kasu emateko erran die zaharraz **arduratu** direnei. Xabier Montoia

Ilehoriaren ama neskame lana egitera joaten zen txaletera, eta gainerakoak soroez **arduratu** behar ziren kondea gizentzearren. Pello Lizarralde

Bera **arduratzen** da -aldameneko gelarantz begiratu zuen. Migel Angel Mintegi

Tales ez zen askorik **arduratu** zenbakiez; irudi geometrikoetan interesatu zen bereziki: zirkuluak, zuzenak, triangeluak. Jon Muñoz

Ateneak, beti hartaz **arduraturik**, laino handi bat isuri zion gainera, feaziarren batek ikusi eta galdeka has ez zekion. Juan Kruz Igerabide

Askatasunaz, Justiziaz-eta kezkatu bai, baina gero emazteak azken hatsean munduratutako seme tontoaz **arduratzeko** potrorik ez zuen eduki, kabroia! Jokin Muñoz

Hitzaldia bukatutakoan Olgarekin hitzegiten dut, kultur ekitaldiez **arduratzen** den gizarte-laguntzailearekin. Bernardo Atxaga

-Zalantzarik ez izan, jauna, zalantzarik ez izan, ni **arduratuko** naiz horretaz. Jon Maia

Aitatxi, orduan, osagarri betean baitzen oraino.. ø kanpoko sail bortitzez bezala etxe-inguruko hainbeste lan mota desberdinez **arduratzeko**. Daniel Landart

Bera gure kristautasunaz **arduratzen** zen batik bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Ekonomia, jatorrian, etxeko gobernamenduarekin zerikusia zuten ondasun eta arazoez **arduratzen** zen. Iñaki Heras

-Arturrek irabazten badu, berriz, neu **arduratuko** naiz zuen bion arteko bakea egiten. Juan Kruz Igerabide

"Ze lore dira horiek? ", galdetu diote txanogorritxo hauek erretaguardiaz **arduratu** behar duen begiraleari. Xabier Mendiguren Elizegi

Naturak zuzen jokatzen du beti, bere buruaz eta bere mende diren izakiez ez beste ezertaz **arduraturik**. Felipe Juaristi

Ekuazioa xuxen betetzen zen soluzio diluituetan; inor ez bide zen **arduratu** soluzio kontzentratuetan, likido polar puruetan eta azkenon arteko nahasteetan egiaztatzen. Juan Garzia

Orain Sandra da bi hilabetean behin gizonari kartazala emateaz **arduratzen** dena; hartara, ez du zertan nire zuzendari-bulegora sartu. Iban Zaldua

Heldu zion lepotik besteari, eta edan egin zuen, gero bota zuen lurrera botila, eta besteak bizikletez **arduratzen** ziren bitartean, tabernan hasitako pixaldia amaitu zuen, kantuan: Josu Zabaleta

Charliek **arduratu** behar izaten zuen hartaz. Mirentxu Larrañaga

Adio, eguerdiak jo du: aurki ez naiz zutaz gehiago **arduratuko**. Jon Muñoz

Hezkuntza mundutarraz aita **arduratu** zen. Imanol Unzurrunzaga

Elite politiko, ekonomiko eta militarraren beharrizan ideologikoez **arduratzen** dira. Txema Ramirez de la Piscina

Hainbeste **arduratzen** gara geure gorputzaz! Hainbestetan jantzi, garbitu, zaindu dugu, bizarra moztu dugu, edaten, jaten eman diogu. Josu Zabaleta

Esan nion Myrnari ziur nengoela bera ez zela gizon hartaz **arduratuko** interesgarria izan ez balitz. Koro Navarro

Gainera, biak **arduratzen** ziren gorputza zaintzeaz. Joan Mari Irigoien

Haiek **arduratuko** ziren kudeaketak behar bezalakoak izan zitezen. Jon Alonso

Konturatu gabeko norbait geratzen bada, **arduratuko** dira iragarkiak hori gogorarazteaz. Arantxa Iturbe

2 da/du *ad* kezkatu.

Zer gertatu ote zitzaien Loxetakoei, hura zen **arduratzen** zuen gauza bakarra; zehatzago esateko, azaldu ote zen Miren babeslekutzat hartu ohi zuten zumarditik. Ramon Saizarbitoria

Eta zure alemanak izugarri **arduratzen** du. Antton Olano

-Higatik benetan **arduraturik** eta ariman pisu handiarekin egon nauk, Hernando. Edorta Jimenez

Nahiz berak, ni bezala, egunsentiaz batere **arduraturik** ez egon, eta kasernatikako hotsek eta zalapartek ez bestek kezkaturik eta ohetik jaikiarazirik. Txillardegi

Bai, gogoan dut hozkailuarena, ez **arduratu**. Iban Zaldua

Ez zaitez **arduratu** nitaz... ez ezazu pentsatu zure ahizpa sarritan mozkortzen diren horietakoa denik... gaizki nago, neka-neka eginda... zikin sentitzen naiz... eta nerbioak lur jota dauzkat! Xabier Paya

Hori al zen **arduratzen** hinduena? Lopez de Arana

-Orduan ez **arduratu**, ze gauzak asko aldatu dira han. Jon Arretxe

Bakarrik dago, eta ia ohitzen hasia da, edo ez dago, behintzat, aurrekoetan bezain **arduratua**. Pello Lizarralde

Ez **arduratu**: horrelakoetan errua ez baita zurea, komunikazio-tresnarena baizik. Joxerra Garzia

-Baina... ondo geratuko da? -**arduratu** zen bat-batean Maria. Unai Elorriaga

-Ez zaitez horretaz **arduratu**, utzi gure eskuetan hori. Josu Zabaleta

Greg, hasieran, **arduratu** zen bere ikusmenaz, baina swamiaren azalpen espiritualak lasaitu zuen gerora. Xabier Olarra

Kokospekoa igurtzi zuen, **arduratuta**. Fernando Morillo

Izan ere, hitzen esanahiek ez zuten Poe bereziki **arduratzen**, ezta poemaren beraren esanahi orokorrak ere. Koro Navarro

Matias ez zen **arduratu** pinportaren desplazamendua zela-eta, gero eta konbentzituago baitzegoen bere gorputza katu bat bezalakoa zela edo, beste era batera esanda, bere gorputza zela inori kasurik egin gabe bizi zen ente bat. Unai Elorriaga

Fernandok ez **arduratzeko** esan zion. Lutxo Egia

Han goiko mendiburu zurian ez duzu ezertaz **arduratu** beharrik izango. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

arduratu barik (6); **arduratu behar** (86); **arduratu behar du** (7); **arduratu behar dugu** (5); **arduratu behar izan** (8); **arduratu behar izaten** (7); **arduratu beharko** (27); **arduratu beharko du** (5); **arduratu beharra** (7); **arduratu beharrik** (20); **arduratu da** (55); **arduratu den** (19); **arduratu dena** (5); **arduratu dira** (20); **arduratu diren** (16); **arduratu egin** (7); **arduratu egiten** (6); **arduratu gabe** (43); **arduratu izan** (13); **arduratu nahi** (12); **arduratu naiz** (6); **arduratu nintzen** (16); **arduratu ohi** (6); **arduratu ondoren** (5); **arduratu zen** (109); **arduratu ziren** (29); **asko arduratu** (8); **askorik arduratu** (5); **bakarrik arduratu** (9); **batere arduratu** (10); **batere arduratu gabe** (5); **bera arduratu** (19); **bera arduratu da** (7); **bera arduratu zen** (7); **buruaz arduratu** (6); **ez arduratu** (50); **ez hadi arduratu** (5); **ez zaitez arduratu** (9); **ez zen arduratu** (5); **ezertaz arduratu** (8); **gehiago arduratu** (19); **gehiegi arduratu** (12); **gutxi arduratu** (5); **hartaz arduratu** (7); **horietaz arduratu** (5); **horretaz arduratu** (14); **kasuaz arduratu** (11); **kasuaz arduratu zen** (5); **neu arduratu** (8); **neu arduratu nintzen** (5); **nitaz arduratu** (7); **zergatik arduratu** (5); **zertan arduratu** (13)

arduratuko da (123); **arduratuko dela** (9); **arduratuko den** (34); **arduratuko dena** (8); **arduratuko dira** (30); **arduratuko diren** (6); **arduratuko gara** (9); **arduratuko litzateke** (6); **arduratuko naiz** (41); **arduratuko nauk** (6); **arduratuko zela** (11); **arduratuko zen** (15); **bera arduratuko da** (10); **bera arduratuko zela** (6); **horretaz arduratuko** (6); **neu arduratuko naiz** (16); **ni arduratuko naiz** (16)

arduratuta agertu (7); **arduratuta dago** (12); **arduratuta dagoela** (8); **arduratuta daude** (26); **arduratuta daudela** (5); **arduratuta zegoen** (5); **arduratuta zeuden** (6); **oso arduratuta** (16)

---

arduratzaile *iz ipar* arduraduna.

Hilabete hunen seian herriko etxean elgarretaratu dire apirileko lehen astean gure herrian izanen dugun OPEN deitu lehiaketaren **arduratzaileak**. Herria

Unibertsitateko erakasle, kontsultatzale eta hezitzaileak dira kurtso emaileak eta banakako ikasle segitzan **arduratzaileak**. Herria

Hilabete hunen seian herriko etxean elgarretaratu dire apirileko lehen astean gure herrian izanen dugun OPEN deitu lehiaketaren **arduratzaileak**. Herria

Beraz orai ontsa iraganik **arduratzaileek** aski dute helduden urtekoari pentsatzea. Herria

---

arduratze *iz* ardura hartzea.

Ez zen haren falta aipatzen zuen lehen aldia, baina ordu arte ez zuen sekula hain garbi azaldu hartaz arduratzea, **arduratze** horrek harreman fisikoa estutzeko eskaintzen zion ahalbidea, faltan sumatzen zuenik. Ramon Saizarbitoria

Haragizko maitasuna batetik, eta, bueno, bestetik, maitasun sentimentala esango dioguna, egunero-egunero besteaz **arduratze** hori. Koro Navarro

Molde hortan berean, Departamenduan, bertze 50 horrelako batasunek izenpetua duten araudi hunek, **arduratzearen** sailan, haurra emaiten du lehen eta ikerketak eginak dira 12 urtez goiti duten haurren biltzeari buruz. Herria

Erraz ikus zitekeen hori Erreginaren eta gortearen begirada lotsatuengatik (ez **arduratzearen** itxurak egiten bazituzten ere), Dukearen baiezkoa lortzeko aurkeztutako dama goxoek aurrera segitzeko agindua jaso ostean egiten zituzten negarrengatik, eta Dukearen aurpegi etsiagatik ere. Julen Gabiria

ardurazko[1] *izlag* garrantzizkoa.

Agindu eta debeku moralen, politika ororen, zientziaren beraren euskarri bakarra giza kontzientzia dela, sostengu makalegia iruditzen zaigu hain **ardurazko** gauzentzat mundu honetan. Joxe Azurmendi

---

ardurazko[2] *izlag* ohikoa.

Jakina, banekien hori ez dela ohikoa polizien artean, baina hala eta guztiz euren aurpegiek oroitzapen hori ekarri didate: **ardurazko** ezinegon ezagun berdina eta gauzen aldaezintasunaren aurreko etsipen berdina. Urtzi Urrutikoetxea

---

ardurenean *adlag batez ere ipar* gehienean.

Ardurenean pilota zen joko nagusia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lehengo denboretan, urrietan, ilun nabarra jadanik hor, usoek hartzen zuten beren pausa lekutzat haritz ondo bat edo pago bat, **ardurenean** toki berezi batzuetan, dena bixkar eta zuhaitz luze. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lan bakoitza bere tenorean heldu zen eta **ardurenean** edo maizenean, etxekoak egin baino lehen, joan behar zenuen auzoko lanetara, sobera gibelatuak baitziren. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ezbeharrak, **ardurenean**, zakurren odol gaiztoarengatik baino gehiago, nagusien arduragabeagatik gertatzen dira. Gotzon Garate

Horrela ezabatu dugu **ardurenean** errakuntzari eman ohi zaion kausa. Piarres Xarriton

Hiru gauza nituelarik oroitzeko, **ardurenean**, hiruetarik bat gogoratzen nuen eta azken biak burutik arras joaten zitzaizkidan. Itxaro Borda

Hemendik oren erdi baten bidea da doi-doia, gazte ginelarik segurik ez ginuen gehiago behar, espartinetan, **ardurenean** ortotsik, hemendik Urdantziako leporat, gero Urdiako leporat, edo berdin zuzenean gainez gain. Michel Oronoz

Bakotxak ahal duen bezala **ardurenean** berdin nehork ez baidio erakatsi nola bere burua hobeki baliatzen duen. Herria

Gai-jartzailetza lantzen delarik zeharka lantzen da **ardurenean**. Berria - Kultura

---

ardurenik *adlag ipar* maizenik.

Garai hartan **ardurenik** oinez zen jendea ibiltzen. Herria

Omiasaindu bezperan, haurrak ziren mozorrotzen, sorgin-jauntzietan paratuz **ardurenik**, eta goxoki galdez ibiltzen etxez-etxe. Herria

Hogoi bat lagun izaten ginen **ardurenik**, gehixago merkatu egunetan. Janbattitt Dirassar

Ixiltasunean iretsi ditu **ardurenik** egungo egunean gure erlisioneari buruz egiten dituzten jazarkunde izengabeak! Xipri Arbelbide

-Ni hemen naiz egun guziz, baina arratsari buruz **ardurenik**. Janbattitt Dirassar

Ixiltasunean iretsi ditu **ardurenik** egungo egunean gure erlisioneari buruz egiten dituzten jazarkunde izengabeak! Xipri Arbelbide

Euskarazkok ere badu bere salbuespentxoa, eta da garai batean, Oñatin eta Bizkaian gutxienez, esaten zen euskerazko prakak delakoa, "pantalones a usanza del país basco" baitziren Azkuerentzat, baina beharbada "euskarazko jendeak **ardurenik** janzten dituen prakak" bezala interpreta litekeena bere sorreran, eta garai jakin bati dagokiola. Iñaki Segurola

---

are *(ETCn **99.545** agerraldi)* **1** *adlag* eskuinean dagoen hitz multzoari emendatze zentzua ematen dion hitza.

Eta orduan ezkerrak **are** sakonago egiten du dantzan tekla beltzen gainean, eta orduan auzokoa geratu egiten da, eta kaleaz bestaldean hortentsiek ikusten uzten ez duten leiho bat zabaltzen da. Alberto Barandiaren

Kuban zaila da auto bat edukitzea, eta **are** gaitzago auto horrek funtzionatzea edota gasolina lortzea. Pako Aristi

Halarik ere, berez horren agerikoa den hori **are** argiagoa da hitzez zehaztuta, bere horretan iraungo baitu bestela zalantzak. Joxan Elosegi

Eta **are** dotoreago izango da oihalak haize alde zabaltzen dituztenean. Harkaitz Cano

Nik berarekin nengoen guzti-guztietan jotzen nuen kanpaia, atsegin bainuen oso bere gorputz beroa ondoan sentitzea eta, **are** atseginago, bere esku handiak ene izterrak, lepoa, bular aldea eta hankartea laztantzen sentitzea.

Antzeko arazoak sortu ziren John jaio zenean, eta gauzak **are** zailagoak izan ziren Michael sortzean. Julen Gabiria

Are hobeto topo egingo balute. Lourdes Oñederra

Kale **are** estuago batera jiratu eta ezker-eskuin begiratu ondoren lasto makilatxoz osaturiko errezela zeharkatu zuen emakumeak. Harkaitz Cano

Ni **are** urduriago nengoen eta sutan jartzen hasia nintzen. Fernando Rey

Beste aldean iluntasuna, eta harantzago hormak, eta **are** harantzago helduen iluntasun ikaragarria, zalapartari eta dardarati, leihoetan gora eta atearen zirrikituetan hatzak sartuz. Lopez de Arana

Gero, **are** ahots ozenagoz, esan zien denei: Juan Kruz Igerabide

Tradizio baten arabera, **are** gorago jo zuen Cyril Tourner-en urguiluak. Juan Garzia

Eta mozorroaren barrutik **are** amultsuago heltzen zen. Koldo Izagirre

Bizitza berez zaila bada, **are** zailagoa da bizitzari zentzurik ikusten ez bazaio, baina neke horretaz jabetzen garenean soilik hasten gara bizitza ulertzen. Anjel Lertxundi

Baina apur bat geroxeago, pentsamendu **are** ezkorrago batek harrapatu du: agian aspertu egiten dut. Hasier Etxeberria

Eta gorputzez bikaina bazen, izaeraz **are** bikainago. Gotzon Garate

-Eta zenbat kobratu nahi duzu bi eguneko lanagatik? Bihar eta larunbatean? Etxe handi xamarra daukat, hori jakin behar duzu, eta etxe berria **are** handiagoa da. Matías Mujika

Salarik sala erakutsi digute eta kanpotik zuria bada barrutik **are** zuriagoa da dena, pasilloak zuriak, egongelak zuriak, logelak zuriak. Joseba Sarrionandia

Hark ere jantzi kurduak zeuzkan, baina nire amarenak baino **are** politagoak iruditu zitzaizkidan. Juan Kruz Igerabide

Doinu geldoek **are** motelago egingo lukete giroa, eta kalejirak jarri ditu Ramonek hasteko; halaz guztiz inor ateratzen ez dela-eta, begiraleak arduratu dira martxa sartzeaz: Juan Luisek atera du neska multzo bat erdira, eta gauza bera egin du Elik mutilekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Are amorratuago gizona eta haren ahaideak. Gotzon Garate

Aldiz xantre abiatuz geroz ez zen gehiago plazetan agertzen, **are** gutiago toberetan, Barnetxe erretoreak debekatua baitzakon. Michel Oronoz

Izatekotan ere, Danelenganako **are** erruki gehiago sentitzearen beldur izango nindukek. Anjel Lertxundi

Une honetan, ordea, desagertu da esnatzean izan dudan sentsazioa eta idazkuntza premia bihurtu zait berriro, **are** indartsuagoa ametsak justifikatu duenetik). Joseba Urteaga

Are hobeto, orduan! Josu Zabaleta

Are errazago Elgetak bi botoi gehiago erantsi zizkionetik. Iñigo Aranbarri

Bihar, trenak **are** urrunago joango dira, nekearen nekez intzirika dabiltzan errailen gainean. Eskarne Mujika

Sinbolismo hori **are** garbiago gelditzen da konturatzen garenean erdal liburuak ere parrastan saltzen direla han. Pello Salaburu

Neskaren irribarrea **are** handiagoa egin zen. Patxi Ezkiaga

Ordurako famatua zen Thomas literatura zirkuluetan, baina diruz eskas zebilen, **are** eskasago familia ugaltzean. Koro Navarro

Zutitu da eta **are** ozenago egin du barre. Xabier Paya

Geroxeago atera du ETAren gaia, ezagutzen dituela talde armatu horren nondik norakoak, eta Kolonbiako gerrilarekin alderatu du, hurbiltasunagatik **are** hobeto ezagutzen duena. Pako Aristi

Are apalago egin zizun, emazteari begiratu laburra egin ostean. Koldo Izagirre

Hurbildu zaidan neska, jarri dizkin eskuak aulkian, egin zidan berriro irribarre - aurrekoa baino **are** seduktoreagoa nire pertzepzioaren arabera -, eta esan zidan: "A, libre dago? Anjel Lertxundi

Iruditzen zait, jainkoak beren artean borrokan hasten badira, **are** zoritxar gehiago etorriko zaigula. Juan Kruz Igerabide

Mahaiaren erdialdean, bi entsalada-ontzi ederretan entsalada **are** ederragoak zeuden, edonork nahierara har zezan. Aitor Arana

Ni baino **are** bakarrago zegoen, arrotza egiten zitzaion herria. Agurtzane Juanena

Beste lurralde batzuetan, **are** agerikoagoak, bi sistemok lurralde batean bizi baitira, albokide eta auzoko. Andres Urrutia

Eta normalkuntzari begira arazoa larria bada, **are** larriagoa da prentsa abertzalearen kasuan, jarrera honekin, azken batean, erdarazko bertsioa jotzen baita normal-neutrotzat, eta euskarazkoa markatutzat; hau da, beren-beregi bultzatutakoak soilik onartzen dira euskal grafiaz: Iñigo Aranbarri

Orri hauetan bertan datorren argazkian ageri da Artzapezpikua Donostiako agintari berriak agurtzen, bere bi idazkari pertsonal leialak ezker-eskuin dituela: apaiz gazte bat eta moja **are** gazteago bat, odisea-giroko ihesaldian laguntza handia eman ziotenak. Inazio Mujika Iraola

Hitz egiten zuen bezala idaztea **are** zailagoa egingo zitzaion, ez baitzuen inoiz ikasi. Joseba Urteaga

Eta zerura begiratzen zuen sudur ttipia, buruaren erditik, eta honen azpian, batek daki nola, **are** eta perfektuago egiten zaituen inperfekzioa: hortz handiak estaltzeko ezpain mehe ezinduak, baina, aitzitik, nire musua ozenki erakartzen dutenak. Lander Garro

Beste alde batetik, sedukzio-saioaren porrotak **are** erretxinago eta goibelago egin zuen. Koro Navarro

2 (aditz bati atxikia)

Sanchez herritarren jarrera berean zegoen; jende guztiak erruduntzat jotzen zuen Garrota, eta batzuek **are** esaten zuten, errudun ez bazen ere, zigortu beharra zegoela, edozer oker egiteko gauza zen bihozgabea zelako. Josu Zabaleta

Are, zerbait esan zuela ere ziurta zezakeen. Aritz Gorrotxategi

Euskaldunon literatur entsaladari ere ez letorkioke batere gaizki erabili dituzten eta **are** erabiltzen ari diren errezeten ezagutza. Anjel Lertxundi

Adarra jo diet apur bat, eta **are** urduriagotu ditut, ez dakit neurriak hartu dizkidaten. Koldo Izagirre

Eta horrek **are** gehiagotzen zidan ondoeza. Josu Zabaleta

3 (-ago atzizkirik gabe) orobat.

Gure arteko bakoitzak, eta ez soil-soilik ametsetan, hiltzen du bere gurasoa eta **are** guraso biak, haien ondotik bizirik irautearren. Joxan Elosegi

Baina ideiarik zoroenak, **are** kriminalenak, aurrera eramatera ausartzen bada inor, orduan zer? Harkaitz Cano

Txiroen minaren eta itzalik ezaren aurrean, aberatsek soraioa eta **are** destaina beste erantzunik ez dute. Lopez de Arana

Are une hartan, altxor-ametsek hartua zioten asalduz burua. Juan Garzia

4 ***are eta***

Grinek edo gerrako premiek giza odola isurtzen erakutsi badute ere, giza jarreraren leungarri diren legeek ez lukete eredu basatia hedatzen lagundu behar, hau **are** eta kaltegarriagoa baita lege bidezko heriotza gauzak aztertuz eta itxurak zainduz egiten denean. Juan Martin Elexpuru

1670eko ordenantzak **are** eta zorrotzagoa egin du auzibidea. Juan Martin Elexpuru

Bero eta zoriontsu sentitzen nintzen, ferekatzen hasi nintzen eta hotzikaratxo bat igo zitzaidan eztarriraino; gidariak aurreko ispilutik begiratzen zidan, eta honek **are** eta asaldatuago jartzen ninduen. Juan Martin Elexpuru

Zubigaineko kaminero-etxean gertatu zena kontatzen hasi orduko, gure gela txikia **are** eta handiagoa bihurtzen ari dela iruditu zait. Xabier Etxabe

5 ***are eta areago***

Are eta areago, gero eta bereizezinago zitzaizkion egunak Morse andreari. Mirentxu Larrañaga

Eta ez dezagun honetaz gehiago hitzik egin, Kondesa izango dun eta Santxika, nahiz eta hi **are eta areago** mintzatu. Patxi Ezkiaga

Era horretara baita, trumoi indartsuak astindurik, badirudi dena dardaratzen dela eta mundu zabalaren murru eskergak, bat-batean leherturik, bat-batean zabaltzen direla, kolpera baturiko haize bortitzak hodeia zulatzen duenean eta, beronen barruan sarturik, zirimolaka biratzen eta hodeiaren erdigunea hutsarazten eta ingurua **are eta areago** trinkoarazten duenean, arik eta, bere indarra eta oldar zorrotza makaldurik, zarata izugarriko burrunban lehertu arte. Xabier Amuriza

6 ***are eta gehiago***

Etxean jokatzea abantaila izan ohi da, derbietan **are eta gehiago**, baina kasu honetan ez da horrelakorik nabaritzen. Berria - Kirola

Haien arabera, horrek kolokan jarriko lituzke oinarri sozialistak, eta gizartea **are eta gehiago** haserretuko litzateke. Berria - Mundua

Are eta gehiago: fedea izango banu ere, ez dut inolako interesik Vermontera bizitzera etortzeko. Oskar Arana

Nahiago luke, **are eta gehiago** oraindik, zer esana emango zion zerbaitetan pentsatzeko gauza izango balitz. Mirentxu Larrañaga

Adinean aurrera egin ahala **are eta gehiago**, seguruenik. Migel Angel Mintegi

Seguru, oso seguru gainera, beste edozein ipuin bezala pasatuko zela, **are eta gehiago** zati nabarmenak apur bat txukundu eta orraztuz gero. Bernardo Atxaga

Areago - **are eta gehiago** -, han kanpoan zuriak zebiltzan eta haiei nola antzeman? Anton Garikano

Are eta gehiago egin nahi diat hire alde bizi haizen pobretasun horretan eta heure eginbeharrak egunero dakarzkian lan eta arduretan. Juan Garzia

Datu hauek denak ere zalantzan jartzekoak dira eta sai, erroi, krokodilo eta elefanteei buruzkoak **are eta gehiago**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Dena dela, Chakiv Jelil Aljeriako Energia ministroak prezioak **are eta gehiago** garestituko direla aurreikusi du, "espekulazioa eta nazioarteko egoeraren ondorioz». Berria - Ekonomia

Eta zuek, seme-alabok, ameskeria batean oinarritzen den haur-debozio horretatik **are eta gehiago** libratzen zaretenean, sinets ezazue, zuek ere ez diezue ezer zor egun batez argia ikusi ahal izateko odola eman zizueten gizaki horiei. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

produktuen eskala handiko ekoizpen, prestakuntza eta banaketa **are eta gehiago** zentralizatuko da;. Edorta Agirre

7 ***are eta gutxiago***

Are eta gutxiago defentsako beharra apartekoa ez denean. Berria - Kirola

Are eta gutxiago gure etsaiek nahi dutena dela jakinik. Berria - Mundua

Hori baizik ez, hain gutxi non edozein unetan akaba baitaiteke ministro bat inolako eragozpenik gabe, **are eta gutxiago** tradizio literario gotor baten mehatxupean zegoen Ministro hau. Jon Alonso

Are eta gutxiago pasatze hori gazte eta berde garen urteetan gertatzen bada. Bernardo Atxaga

Are eta gutxiago atzera nahian hasi, eta irteera aurkitzen asmatu ez genuenean. Bernardo Atxaga

Ez zen ezer, zerbait izanda, orkatilen edota belaunen pairamena, **are eta gutxiago** taxiaren gastua berdintzen bazuen; baina arimarena, hori, mingarria zen zinez. Bernardo Atxaga

Are eta gutxiago Le Roi du Champagne bezalako pertsonaia bat. Bernardo Atxaga

Pentsatu dut lasaiago egongo zela General Sherman zaharra, hiru mila urteren ondoren ez zuela ezerk estutuko, **are eta gutxiago** euriak. Bernardo Atxaga

Ordutik aurrera, artistak ez zuen ikararik egin nahi izan, eta ez zuten berriro haren oinek Amerika zapaldu, ezta urtero-urtero Chicagon bere lanak erakusteko egiten zen erakusketara joateko ere, eta **are eta gutxiago** bere ospea handiagotu ahala Estatu Batuetako hainbat hiritan antolatu izan ziren museoko atzera begirakoetara. Oskar Arana

Gauez behintzat ez, eta negua izanda **are eta gutxiago**", pentsatzen du jarraian bere begiak tontorrez tontor mugituz. Bernardo Atxaga

8 ***are gehiago***

Kondena **are gehiago** murritz ziezaioten. Oskar Arana

Minak, apaldu beharrean, **are gehiago** harrotu ninduen. Aingeru Epaltza

Ideia finko hura, bada, hilabete oso bateko mozkorraldiak **are gehiago** minberatua, bakardade guztizko hartan handituz eta handituz, daratulu baten gisan ari zitzaion barneratzen. Josu Zabaleta

Hango jende saldoak **are gehiago** nahasi ninduen. Aingeru Epaltza

Jadanik ezagutua zen, orain **are gehiago**, Colin Powell-en ordez kanpoko ministroa izanez Estatu Batuetan. Herria

Gaiztoen sakrifizioak higuingarriak dira, **are gehiago** asmo txarrez eskainiak badira. Elizen arteko biblia

Hori, gure artean, oro har arraroxkoa izaki, **are gehiago** bere anaiarteko jendeetan. Aingeru Epaltza

Zintzoak lurrean izaten badu bere ordaina, **are gehiago** gaizto eta bekatariak! Elizen arteko biblia

Hizkuntzak, munduko edozein hizkuntzak, eta **are gehiago** hizkuntza agoniko batek, batu egiten du barrurantz, eta banatu eta bereizi kanporantz. Iñaki Segurola

Haren oihuak haran hegi batetik bestera aditzen ziren, **are gehiago** haize egunetan. Itxaro Borda

Halako jokabideak ondo ikusiak zeuden ezkerreko ekintzaileen artean; **are gehiago,** liburuak lapurtzea ekintza iraultzailetzat hartzen genuen. Juan Kruz Igerabide

Bake honek ordea, bide ematen dio gaitzegiteari, ezen barkamenaren erraztasunak pizgarri bat eskaintzen baldin badio gaizkileari, **are gehiago** sustagarri emanen dio, gaztigurik ez izateko agintzak. Piarres Xarriton

9 *are gutxiago*

Herriko plazan omen zegoen eskola; ez nekien nor nuen irakasle, **are gutxiago** ikaskide. Joxean Sagaztizabal

Nik artean ikusi gabe neukan hiria, eta **are gutxiago** kai ikaragarri handi hura. Fernando Rey

Nire egoeraz pentsatzen nuenean, ez nituen erabiltzen normalean erabiltzen diren hitzak, ez "haur bat espero dut", ez "haurdun nago", eta **are gutxiago** "haur-esperantzatan nago". Joseba Urteaga

Are gutxiago jakin zezakeen bere gogoetetan murgildua geratua zenik, baina hala irudikatu zuen, eta hala kontatu Mozarten bizitza-n. Imanol Zurutuza

Auzitegi Nagusiak hartutako erabakia deitoratzeaz gain, Urkulluren esanetan, "PSOEren gobernuarekin ez da ezer aldatu; **are gutxiago**, PPek bilatzen zuen Espainia bateratuaren ideia». Berria - Euskal Herria

Inork ez zuen espero Estudiantesen kontrako kanporaketa erraza izango zenik, **are gutxiago** Tau Baskoniaren oraingo egoera hauxe izango zenik. Berria - Kirola

Are gutxiago galdera hori. Lourdes Oñederra

Eta horregatixe dago hau animaz beterik; barkamenik gabe hil zen jendearen alderrai ibiltze huts-hutsa, eta ez baitu lortuko barkamen hori inola ere, **are gutxiago** gutaz baliaturik. Juan Garzia

Are gutxiago Bonapartiusek, baina badaezpada ere debekatu egin zien enperadoreak biolin jotzaileei musika jotzea, gerra kanpainak iraun zuen bitartean. Felipe Juaristi

Georgek ez ote zaitu beharko? Zer duzu, hain larria dena?"... "Familiako arazo inportanteak - esan dit -, eta Georgek ez du klase partikularrik beharko hurrengo bi asteetan, eta Erichek **are gutxiago**. Anton Garikano

Ez zegoen inola ere tsarraren mandatari arrunt baten kinkan; **are gutxiago**, inork ere ez zuen halakoa zela susmatu behar haren bidaia luzean. Karlos Zabala

Juliak ez daki nola ezkutatu, **are gutxiago** liberak. Alberto Barandiaren

Egin beharrak oro beteko dituk baina bi gauza argi geldi bitez: lehena, ez dela frantses herritar bakar bat ere mugaren pasatzera haizu izanen autoritatearen, beraz hire baimenik gabe; eta, bigarrena, eskualde hartan ez dela neholaz ere apez ihardokitzailerik onetsiko, eta, **are gutxiago**, lehengo eginkizunak bete eta iraultzaren kontrako propaganda egiten duenik. Elena Touyarou

Zineman nuen ikusia antzeko zerbait, Werner Herzogen film batzuetan, baina ez nuen uste inoiz horrelakorik benetan begien aurrean ikusiko nuenik, **are gutxiago** astegun buruzuri batez Orexako plazan eta Lauaxetaren aldamenean. Juan Luis Zabala

Are gutxiago eskualde osoarena, herrialdearena. Fernando Rey

Are gutxiago bat-bateko egoeretan. Fernando Morillo

Bai, badakit literaturzale gehienek ez dituztela estimu handian; eleberriaren diktadurak bizi gaitu, eta ipuinak ez du horrenbesteko itzalik gurean, **are gutxiago** hainbat egileren narrazio laburrak batera aurkezten dizkiguten bildumek. Berria - Kultura

10 *gero eta areago*

Nik, berriz, itxaroten jarraituko dut, **gero eta areago** zu goretsiko. Elizen arteko biblia

Horregatik pentsatzen dugu batak bestea ordezten dutela teoria zientifikoek, **gero eta areago** hurbildu nahirik teoria idealera, errealitatearen irudikapen behin betikoa emango duenera. Juan Garzia

Harengana bultzatu zuen, **gero eta areago,** senarrarekiko urruntasunak. Xabier Montoia

Ongizatearen Estatuari egozten zaion eginkizuna aldatzen da, bere funtzio nagusia gizarte mailako istiluak eragoztea bilakatzen baita **gero eta areago**. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

are argiago (16); **are arrazoi** (20); **are ederragoa** (12); **are errazago** (11); **are eta** (371); **are eta gehiago** (106); **are eta gutxiago** (55); **are eta zailagoa** (12); **are garrantzitsuagoa** (23); **are gehiago** (1808); **are gehiago esango** (11); **are gehiago harritu** (15); **are gehiago kontuan** (19); **are gogorrago** (12); **are gogorragoa** (13); **are gorago** (17); **are gutiago** (144); **are gutxiago** (706); **are gutxiago oraindik** (11); **are handiago** (12); **are handiagoa** (84); **are handiagoa da** (20); **are handiagoa izan** (11); **are handiagoak** (25); **are harrigarriagoa** (18); **are harrituago** (13); **are hobeto** (21); **are ilunago** (11); **are indar** (14); **are ipuin** (18); **are ipuin zoragarriagoa** (18); **are larriago** (12); **are larriagoa** (53); **are larriagoa da** (24); **are nabarmenago** (15); **are nabarmenagoa** (29); **are okerrago** (99); **are okerragoa** (42); **are okerragoa da** (11); **are ozenago** (16); **are urduriago** (18); **are urrunago** (36); **are you** (21); **are zailagoa** (57); **are zailagoa da** (15); **baina are** (104); **baina are gehiago** (27); **baino are** (130); **baino are gehiago** (18); **egoera are gehiago** (11); **eta are** (1001); **eta are eta** (13); **eta are gehiago** (181); **eta are gutiago** (25); **eta are gutxiago** (218); **eta are handiagoa** (12); **eta horrek are** (32); **hau are** (17); **hori are** (45); **horrek are** (57); **horrek are gehiago** (18); **orain are** (17)

---

area 1 *iz* ezaugarri jakin batzuk dituen eremua.

Bilboko **area** osoan eraiki beharreko kopurua 2.000 biztanletik gorako udalerrien artean ere banatzeko proposatu zen. Berria - Harian

Bilbo Handiko Planak berebiziko garrantzia du, **area** horretan bizi baitira Araba, Bizkai eta Gipuzkoako biztanle guztien erdiak, eta, gainera, oso egoera berezia du lurralde antolamendu edo sozio-ekonomia direla eta. Berria - Harian

Gaur egun dagoena sekulakoa da, eta, beraz, aurreneko erronka izango litzateke behar bezala antolatzea **area** osoan bizi diren pertsonentzat. Berria - Harian

Erakundeek **area** funtzionalen mailan ekonomia jarduetarako orubeen kudeaketa egin ahal izateko tresnak sortu eta garatu behar dituzte. Berria - Ekonomia

Alvaro Amann Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuak Legebiltzarrean azaldu zuenez, "azpiegituren lotura txarra, azpiegituren eta **area** logistikoen arteko loturak eta trenbide sarea dira EAEko garraio sisteman ditugun zulo beltzak". Berria - Euskal Herria

2 zenbait kiroletan, eskuarki futbolean, atearen aurrean markatzen den eremua, non faltak bereziki zigortzen baitiren.

Manuel Pablok behin baino gehiagotan lortu zuen **area** ingurura iristea, baina erdiratzeko arazoak zituen. Berria - Kirola

Yestek zelai erdiko lema hartu eta ezker-eskuin baloi bikainak bidaltzen hasi zen, bai Ezquerrori, bai Etxeberriari, eta Urzaizi ere pase arriskutsuak eman zizkion turkiarren **area** ertzean. Berria - Kirola

Area ertzetik baloia gurutzatu zuen, eta Oliver Khan gelditzen saiatu ere ez zen egin barrura zihoalakoan. Berria - Kirola

Tarteka horma biko batzuen bidez bulgariarrak Sorensenen **area** barrura baloiarekin iristea lortu zuten, eta Stialian Petrovek izan zuen gola sartzeko aukerarik garbiena. Berria - Kirola

Ronaldo **area** barruan agertu zen, falta jaurtiketa bat sarera errematatzeko. Berria - Kirola

Tarteka horma biko batzuen bidez bulgariarrak Sorensenen **area** barrura baloiarekin iristea lortu zuten, eta Stialian Petrovek izan zuen gola sartzeko aukerarik garbiena. Berria - Kirola

Campbell jaun eta jabe izan zen bere **area** barruan, bere gorputzkera handiarekin ez zegoen errematatuko zuen suitzarrik. Berria - Kirola

Area handian kokapen onean maisuak eta itxuraz arriskurik gabeko egoera arriskutsuena bilakatzen trebeak, ezerezetik urrea lortzen dutenak. Berria - Kirola

Simeonek sartu zuen gola bere atean, Karpinek **area** txikira eginiko erdiraketa bat gaizki aldendu ondoren. Berria - Kirola

Kroazia 1-0 aurreratu zen azkar, Niko Kovacek **area** txikiko jokaldi nahasi bat aprobetxatuz. Berria - Kirola

3 perimetro jakin baten barruko eremua.

Nola kalkulatzen da poligono erregular baten **area**? Iñigo Aranbarri

---

areago **1** *adlag* are gehiago.

Aldi bakanetan gertatzen dela dio, eguzkiak erre begitartea **areago** ilunduz. Xabier Montoia

Trantsistore intelektual eta moralak dituzten gure hargailuak **areago** garatzerik bagenu, jaso ahal izanen genuke transmisio kosmiko hori. Xabier Kintana

USA trilogia argitaratzearekin batera, Dos Passos langileen idazlea zelako ustea **areago** sendotu zen. Lopez de Arana

Areago aldarrikatuko nuke esandakoa ingelesa ulertzeko gero eta erraztasun handiago duten (edo izan beharko luketen) ikerlari gazteentzat. Lourdes Oñederra

Leire marmarka hasi da sukaldean, eta giroa **areago** petraltzeko zer edo zer jausi zaio deskuiduan. Patxi Iturritegi

Nola egiazta dezakegu hori **areago**? Juan Garzia

-Areago esango nuke. Anton Garikano

-Areago nire alde: hori historiaurrea duk. Iban Zaldua

Halakoen aurrean, zainetan odola bor-borka sentitzen dut, eta zerbait egitearen beharra **areago** sentitzen dut. Pako Aristi

Lehen begiratuan, Noeren Kutxatik irtendako animaliek **areago** dirudite Artistaren batek zein bere aldetik irudikatuak, biziaren aniztasun zabalaren ñabardura infinituetan laketzen zuelarik egile horrek bere fantasia. Juan Garzia

Tonu hanpatu samarra erabili zuen eta konturatu zen bere burua saldu zuela; baina, masailak **areago** gorritu bazitzaizkion ere, ez zion lagunaren begirada tinkoari itzuririk egin. Irene Aldasoro

XX. mendeko psikoanalisiak, esan gabe doa, berebiziko materiala aurkitu du Poerengan, eta horrek **areago** zabaldu du idazle madarikatuaren izena. Koro Navarro

Aitak teilatuan egindako lanak egoera **areago** txartu zuen. Juan Kruz Igerabide

Errusiarra **areago** haserrarazteko helburuarekin, altxorraz ahazteko eta ibilaldi espeleologikoaz gozatzeko esan behar zionean, zerbait ikusi zuen horman Cortok: Iban Zaldua

Definizioa eskasa zen, ergela ez esateagatik, eta **areago** estutu nituen nire burmuinak. Bernardo Atxaga

Parlamentuaren eta Erregearen arteko gatazkak **areago** zihoazen eta, Hobbesek, bere burua babeste aldera, Elementuak izenekoa argitaratu zuen, 1640an, azken bi liburuak soilik zirriborratu bazituen ere. Esteban Antxustegi

Berdin dio etxe baten teilaturaino jaurtitzen badu, zeruraino, ez da **areago** hiltzen. Itziar Otegi

Nahiz eta Erromako epikureismoaren historia ez den hor amaitzen, **areago** hasten baizik, eta, nahiz eta beharbada enperadore paganoen aro bat eta kristauen beste bat bereiztu beharko liratekeen, guk ez diogu hitzaurre hau gaindituko lukeen historia horri jarraituko. Xabier Amuriza

Egunen kopuru eta data zehatza ez zaio horrenbeste inporta: **areago** errepara eta begira izan dio eguraldi jeneroari edo laborearen martxari. Pello Zabala

Etxeak bukatzen direnean, errekaren ertzei segituz, badira baratze batzuk, eta altzifre altuak, meheak eta espiritualak sortzen dira haien hesi berdexketatik, bazter honen florentziar itxura **areago** azpimarratuz. Koro Navarro

Beraz, belarriak ez du zehazki harpak bezala jokatzen; belarriaren jokamoldea **areago** da viola d'amore batena. Irene Aldasoro

Aitak semea maite bazuen amak **areago**. Gotzon Garate

Eta hemeretzigarrenean, "Azkenengo besarkada" poeman, **areago** iragartzen digu pizkundea: Joseba Zulaika

Ez zuen lortu, eta begiek bere barne tristuraren maila ematen ez zutelako **areago** atsekabetu zen. Harkaitz Cano

Areago hunkitu zen kalearen amaierara iristen ari zirela ohartzean eta, denborari igarri gabe, Farida Erreginaren plazara agertu ziren. Patxi Zubizarreta

Ez ditut batere gogoko, beren modernia liberala erakutsi ordez beren extutaxun ergela **areago** salatzen duten apaiz berddulero horiek ere. Patziku Perurena

Ez beldurrik izan, ez zaitut **areago** gogaitu nahi... barka iezadazu, arimari garrasi egiten utzi behar nion behingoz, semea hor hilik eta bertan behera datzan ordu honetan. Eduardo Matauko

Eta **areago** saiatzen. Pello Zabala

Jantziak erantzi gabe egiten genuen, lotsak eta gordeka ari beharrak elkar gutiziatzera **areago** bulkatzen gintuztela. Xabier Montoia

Gizabanakotasunaren sentimendua garai modernoetan garatu da **areago**. Juan Garzia

Baina bizikletaldiak eta gaueko haize hotzak, ideiak taxutu ordez, **areago** mozkortu baizik ez zituen egin. Josu Zabaleta

2 (lokuzio gisa, bere horretan)

Hizkuntzaren zientziak mintzairaren beste elementuak baztertzen ahal ditu, **areago**, hizkuntzaren zientziak gertatzerik izango du soil-soilik, beste elementu horiek tartean sartzen ez badira. Isabel Arrigain

Laguna gerritik ondo hartuta neukan eta gogoko zuela nabari nuen bere arnasketa atseginagatik eta, **areago**, eskuez izterretatik heltzen zidala, ez niezaion zakila uzkitik atera. Aitor Arana

Federicok gatazka latzak izan zituen garai batean osaba hauekin eta ez zituen berriro ikusi nahi; **areago**, zin egiten zuen ez zirela bere anaiak, baizik sasikoak, eta usurpazioa erabiliz ez zegokienaz jabetu zirela. Pello Lizarralde

Areago, uste dut nigatik zerabiltela "merkantzia" berba, ez nezan bitxiontzia ezagutu. Urtzi Urrutikoetxea

Areago, badu bulta bat lurtarrekin gurutzatu eta nahastekatzen ari direna; hainbat non, endogamia itzelaren amauraunean, nekez baitira jendeengandik bereizten, nekez... Jose Angel Irigaray

Andre gaztea, hori entzunik, biziki poztu zen, baina ez zuen txintik atera, eta zaldunei zerbitzatzen jarraitu zuen, hala baitzen garai hartako ohitura: zaldun ibiltari batek etxe batean ostatu hartzen bazuen, etxeko alaba ezkongabea izaten zuen zerbitzari; **areago**, aitoren alaba izanez gero. Juan Kruz Igerabide

Guztiz agerikoa da margotzeko modu hau ez dagoela ikusmen errealetik besteak baino gertuago (**areago**, puntu batzuetan urrutiago dago). Josu Zabaleta

Areago, erranen nuke ez zutela inolako harremanik. Alberto Ladron Arana

Bidelagunak hurrena kontatu zidana interesgarria zen; **areago**, oro har, tipoa bera ere begikoxeago iruditu zitzaidan, jadanik urdaileko minik ez neukalakoøø. Joxe Austin Arrieta

Emakumearen iritzi aldaketa guztiz zilegi eta, **areago**, ulergarria zen. Fernando Morillo

Oso umore beltza begitantzen zait, beltzegia aldi honetarako; **areago** gatazka-lekutik hurbil samar gaudela kontuan hartuta. Jon Arretxe

Areago: zorotzat hartu ninduten (elbarritzat ere bai, gainera). Karlos Linazasoro

Areago, geure kontzientziazioan, errepresioa izan da zutabe nagusienetakoa. Hasier Etxeberria

Edo **areago**, halako gauzetan aurkitu uste zenuen egiazko denboraren tasuna. Hasier Etxeberria

Areago, ez dakit Literaturan, baina bai behintzat literatur bide batean, horixe da prozedura nagusia.) Juan Garzia

"Bazen behin, eta bada orain ere, izaki bat gurekin zerikusirik ez duena edo, **areago**, gure kontrakoa dena. Bernardo Atxaga

Areago, Paris osoan ez omen nuen gelarik aurkituko. Alberto Ladron Arana

Areago, berehala igarri zuten jolasak eman zuela berea. Urtzi Urrutikoeetxea

Areago, irudipen lausoa nuen ez nuela berriz ere ikusiko sekulan. Fernando Rey

Eta **areago** ere; gerraren osteko urteetan abadea, idazlea, eta beste euskaldun batzuk ostegunero bilduko dira Finca Vigían, hots, Ernest Hemingwayk handik denbora batera Habanan erosiko zuen etxe dotore ederrean, geroago kontatuko den moduan. Edorta Jimenez

Areago, enpresako egiazko postaria, lanean arratsaldean hasten zena, nerbio-krisi larri baten atarian zegoen, enpresatik kanpo ikusten ari baitzen bere burua. Joxan Elosegi

8 Iseka egiten zidaten etsaiek, **areago**, neure auzokoek; / ezagunentzat beldurgarri bihurtua naiz. Askoren artean

3 (erkaketetan)

Itzalak ziren han, beste ezer baino **areago**, jaun eta jabe. Fernando Morillo

Eta ni beste biak baino **areago**. Eskarne Mujika

Baina bat ezagutu nuen zure antza hartuko zuena, bizian baino **areago** heriotzan. Koldo Izagirre

Gogoeta hori komentu eta monasterioetako sermoi eta hitzaldietan nagusiki egina izateak tratatu teologikoetan baino **areago** erlijio-demografiazko fenomeno baten laguntza izan zuen. Joan Mari Lekuona

Hogeita hamarrak baino **areago** joan zen bortizkerian eta odolzaletasunean... Askoren artean

Onera egin zuen, mutu eta herren - hanka okerrengatik baino **areago** begi kili-koloagatik -, eta negu, uda, euri edo lehor izan, ez zen berehalakoan berriro etxean sartuko. Anton Garikano

Danborrada, hain zuzen ere, bufoikeria bat da; XVIII. mendearen bukaeran eta XIX.aren hasieran, gudaroste atzerritarrek behin eta berriz okupatu baitzuten gure hiria, donostiarrek ikusi behar izan zituzten gudarosteen parada, erretreta, martxa eta desfileen erreplika umorezkoa da, karikaturazkoa baino **areago**. Askoren artean

Beharbada haurrek egiten duten bezala egiten dute lo elkarrekin, ez besterik, elkarrengana goxo-goxo kuzkurtuz, elkar ukituz, barre eginez, haurtzarora itzuli izan balira bezala, amoranteak baino **areago** ahizpak diruditela. Oskar Arana

-Errauts-eremu bat, zingira baino **areago**. Josu Zabaleta

Gogoz kontrakoa genuen, gurera aldatu baino lehenagotik ere - eta, batik bat, ageri zuen bibotearengatik, beste ezergatik baino **areago** -; eta, orain, are gogoz kontrakoago, gurera aldatu zenez geroztik. Mirentxu Larrañaga

Egoeraren haria, ordea, testuarena bezain zilegi zaio, gure ustez, bertsolariari, bat-bateko bertsoa, behin eta berriz esan dugunez, testu hutsa baino askoz **areago** baita. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hala ere, literatur kritikaren ikuspuntutik begiraturik, jolas soila baino **areago** doan eztabaida iradokizunez betea da ebanjelariek Jesus ala Jesusek ebanjelariak sortu zituen jorratzea, edo Keats-en ondorengo Shakespeareri buruz hitz egitea. Anjel Lertxundi

4 (izenondo gisa)

Arrazoi hori ordea ez da bakarrik zuzengabekoa, deabruak asmatua ere izan behar da eta, nolazpait Kaifasek egin zuena baino **areagoa**, ezen hark erran zuen: "Ongi da gizon bat hil dadin herriarentzat"55 eta, hori erratera utzi zuenaren xedetan hori egia zen, nahiz deabruak ezarria zuen erran zuenaren ahotan eta, gisa oroz, errotik gezurra ere zen. Piarres Xarriton

Bestalde, Jaunaren uztarria eztia baino gozoagoa da eta gozotasun guztiak baino **areagoa**; baina uztarri hori ez den guztiak zapore mikatza du arimaren zolaguneko irudi oro baztertu dutenentzat. Joan Mari Lekuona

Bere tesia zera da, objektuari buruz pentsatzeko ematen den denbora zenbat eta luzeagoa, orduan eta **areagoa** bere ondorengo balorapenerako erabiliko den eskema kognitiboaren konplexutasuna, bai eta polarizatuagoa, objektu honi buruzko judizioa. Pello Salaburu

Literaturan, Pérez Galdós eta J. Valera-ren judeofobiaren erabilera eleberrizkoa, P. Baroja-ren antijudaismo kalddarra -dexente **areagoa** Mirande-rena baino-, edo Mourlane Michelena beste euskotarrarena, etab.; oroz gain "konspirazio judu-masoniko" famatua. Joxe Azurmendi

5 ***are eta areago***

Are eta areago, gero eta bereizezinago zitzaizkion egunak Morse andreari. Mirentxu Larrañaga

Eta ez dezagun honetaz gehiago hitzik egin, Kondesa izango dun eta Santxika, nahiz eta hi **are eta areago** mintzatu. Patxi Ezkiaga

Era horretara baita, trumoi indartsuak astindurik, badirudi dena dardaratzen dela eta mundu zabalaren murru eskergak, bat-batean leherturik, bat-batean zabaltzen direla, kolpera baturiko haize bortitzak hodeia zulatzen duenean eta, beronen barruan sarturik, zirimolaka biratzen eta hodeiaren erdigunea hutsarazten eta ingurua **are eta areago** trinkoarazten duenean, arik eta, bere indarra eta oldar zorrotza makaldurik, zarata izugarriko burrunban lehertu arte. Xabier Amuriza

6 ***areago oraindik***

Areago oraindik, gaiztoak bagina bezala irudikatu gaituzte Europan: zer egingo dugu bizimodua irabazteko? Berria - Ekonomia

Lipusek berebiziko garrantzia ematen dio hezkuntzari eta **areago oraindik**, transmisioari. Berria - Kultura

Areago oraindik: ikertzaile batzuen arabera, baliteke piramideak eraiki ziren garaikoa izatea Rhind papiroan aurkeztutako material matematikoa; gure aroa baino 2.800 urte lehenago, alegia! Jon Muñoz

Pippinen ospe ona nabarmen handitu zen Bergilen begietara, izena eta pasahitza esan ondoren, zaindariak agurtu eta pasatzen utzi baitzion; eta **areago oraindik**, lagunari ere pasatzen utzi zion. Agustin Otsoa

Guztiok gara iraganeko exiliatu, baina **areago oraindik** artistak. Joxean Agirre

Heriotza-zigorrak eragiten duen zirrarak ez du bere ahalmenaz ordezkatzen gizonak ahazteko duen berezko joera; gauzarik oinarrizkoenak ere ahazten ditu, eta grinak bitarteko direnean, **areago oraindik**. Juan Martin Elexpuru

Kristauon mundu eta gizarte sakralizatu haietan **areago oraindik**: Hasi Erregena pasa orduko, eta Inauteri eta Karnabalak zirela, garizuma santu hura prestatu behar zen. Pello Zabala

Areago oraindik, eguzkiaren urte-itzuli askorekin, eraztuna barrutik mehetu egiten da darabilen hatzean, tantaren erorrerak harria zulatzen du, burdinazko golde-nabar okerra soroetan txikitu egiten da ezkutuki, eta harri-bideak jendearen oinetan higaturik dakutsagu. Xabier Amuriza

Areago oraindik, inon dagoen eskuerarik indartsuena ere berea dute legeek, kontratu hori grina zital baten harat-honat lotsagarrien objektua izan ez dadin. Andres Urrutia

Areago oraindik, Big Joek beste animaliak ere etxe barrura ekar ez ziezazkion, haietaz ere libratu egin bide zen: harrika bota zizkion zirauna, musker biak, eta trikua. Mirentxu Larrañaga

7 ***areagoko*** *izlag*

Bestela, atsegin itzela da hemengo trigueña horiei begiratzea, eta **areagokoa** horiei liburuak eskatzea eta atzera itzultzera etortzea. Edorta Jimenez

Honenbestez zaituztet igortzen, zu, Kornelio jator hori, eta zu, Voltemand, mandatu hau diezaiozuen Norvegiako errege zaharrari eraman, honako hemen zehazturiko artikuluok biltzen duten honetaz landa harekin deusik tratatzeko beste **areagoko** eskurik ez duzuela. Juan Garzia

Hitz hori, izen hori da ondorengo kontzeptu guztien oinarria, **areagoko** kontzepturik ez duena. Jenaro Garate

Badirudi, beraz, segmentu-kateatze hutsa baino **areagoko** egitekoa duela silabak hizkuntza batean. Lourdes Oñederra

2000 urtean Lakuako gobernuak **areagoko** agindua eman zuen: zakur jabeek, edozein zakur delarik ere, inori Gotzon Garate

Osagai-egitura sistemaren ezaugarri formalak ikergai interesgarria dira, eta erraz erakuts daiteke gramatikaren formaren **areagoko** garapena beharrezkoa dela, eta egin daitekeela. Itziar Laka

Malenkonia satorra bezain itsu da, dagoeneko ez den denbora baten eraiki ezinak bazkatzen du, eta ezari emana baino **areagoko** eremu ezdeus bat eraikitzen du bihotzean, bertako bazter ilunenak bihurturik hutsunearen satalur. Anjel Lertxundi

Beharbada azaleko letra urrezkoen presentziak **areagoko** itzala emango zion beraren jardunari. Juan Garzia

Zatarki-paper koipeztatu batez bilduriko pakete bat darama besapean, eta altxorrik preziatuena balitz baino **areagoko** babesa ematen dio. Anjel Lertxundi

Ezagutza baino **areagoko** behar ezkutu hori, kuriositate asetugabea. Lourdes Oñederra

Euskadiko Ezkerrako zerrendetan agertzeak gainera **areagoko** meritua zuen han, Tolosako Eskolapioen ikastetxean. Xabier Mendiguren Elizegi

Bazen leku hartan kirats gozo melenga bat, lokatzak eta ur geldiak baino **areagoko** zerbaitek eragindakoa behar zuena. Mirentxu Larrañaga

8 ***gero eta areago***

Harengana bultzatu zuen, **gero eta areago**, senarrarekiko urruntasunak. Xabier Montoia

Horregatik pentsatzen dugu batak bestea ordezten dutela teoria zientifikoek, **gero eta areago** hurbildu nahirik teoria idealera, errealitatearen irudikapen behin betikoa emango duenera. Juan Garzia

Gero eta areago gustatzen zitzaizkidan baserritar kutsu hura, usain sarkor haiek (kiratsak zirelarik ere) eta abere marru kontzertu kakofonikoa. Txillardegi

Ongizatearen Estatuari egozten zaion eginkizuna aldatzen da, bere funtzio nagusia gizarte mailako istiluak eragoztea bilakatzen baita **gero eta areago"**. Iñaki Heras

Baina Pedrok, **gero eta areago** : - Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut inola ere ukatuko. Eta beste hainbeste zioten denek. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

are eta areago (4); **areago da** (8); **areago dela** (3); **areago dio** (3); **areago dirudi** (3); **areago egin** (3); **areago egingo** (3); **areago egun** (3); **areago esan zuen** (5); **areago esango nuke** (6); **areago estutu** (3); **areago ez** (6); **areago izan** (4); **areago jo** (4); **areago joan zen** (4); **areago maite** (3); **areago nire** (3); **areago oihu** (3); **areago oraino** (6); **areago zabaldu** (5); **areago zen** (6); **baina areago** (5); **baino areago joan** (3); **baino askoz areago** (3); **baino zein areago** (3); **beharbada areago** (3); **beltza baino areago** (3); **bezala baino areago** (3); **da areago** (6); **edo areago** (19); **ez areago** (3); **ezer baino areago** (4); **gero eta areago** (6); **guztiak baino areago** (3); **hainbat eta areago** (7); **hark areago** (3); **hau areago** (3); **hori areago** (3); **hori baino areago** (3); **kopurua areago** (3); **orduan eta areago** (4); **teknikaz baino areago** (3); **zen areago** (5)

---

areagotu, areago(tu), areagotzen

1 da *ad* aipatzen dena areago gertatu.

Mugikortasun horren ondorioz, era berean, ekoizpena oinarri transnazionalen gainean antolatzen hasi da, eta kontsumo-arauen mundializazioa **areagotu** da. Koro Navarro

Argia apurka-apurka **areagotu** zen, zeru gero eta garbiagoan. Agustin Otsoa

Iberiar penintsulan, Hego Italian eta Sizilian bakarrik **areagotu** zen eta azken-azkeneraino jarraitu Erdi Aroko denboraldiaren hasieran egindako aurrerapena. Iñaki Mendiguren

Lehen doinuekin batera **areagotu** zen entzuleen isiltasuna, eta ikus zitekeen, usain zitekeen, barrenda zitekeen, gizonen egonezina, haien urduritasuna, erabat ez ulertu baina barruraino abian sartzen zitzaien musika hura entzutean. Felipe Juaristi

Gero, kolpe-hotsak **areagotu** ziren. Anjel Lertxundi

Baina, horrez gainera, izugarri **areagotu** ziren europar ekoizpen-aparatuaren premiak (lehengaienak), eta, horren ondorioz, modu ikusgarrian berpiztu zen kolonia-zabalkundearen ekimena. Koro Navarro

Industria-kontzentrazioa **areagotu** zelako, eta hirietako industria-jarduerak landa-eremuetara eta hiri handietatik txikietara desbideratu zirelako, gaindituko zuten merkatariek erresistentzia hori. Koro Navarro

Eta lehenik kontatuko dizut, nola lehengoan, ez dakit eguraldi ezin hezeagoa izan genuelako-edo, erreumaren seinaleak eta ondoreak **areagotu** zitzaizkidan, eta nola aitona Nikolasez oroitu nintzen oharkabean, baita gaitzak eragin zion dolorezko doloreaz ere. Joan Mari Irigoien

Hala, adibidez, nonahi murriztu ziren enpresek eta kapitalek ordaindu beharreko zergak, nazioarteko konkurrentzia **areagotu** izanaren ondorioz. Koro Navarro

Gure eroste-ahalmena **areagotuko** da etorkizun hurbilean ere: ardoak, boilurrak, kabiarra, foie-grasa eta, Erroma klasikoan bezala, gutizia eta produktu exotiko ikaragarri garestiak (baita horien suzedaneo on eta txarrak ere, patrika apalagoen eskura) ikusiko ditugu denda asko-askotan. Edorta Agirre

Aurrera egin ahala, ordea, sentsazioa **areagotuz** joan zitzaion, hats moduko hura gero eta biziago nabaritzen zuen garondoan: epel, heze, itsaskor. Migel Angel Mintegi

Planeta honetan agertu ginenetik -duela 4-5 milioi urte-, gure elkartze sexualak **areagotuz** joan dira, bai maiztasunaren aldetik eta bai kalitatearen aldetik. Luis Elberdin

2 (du aditz gisa)

Estatu Batuetatik kanpo, petrolioaren bigarren krisialdiak eragindako trukearen baldintzen degradazioa ere **areagotu** zuen. Ez zuen gure samina **areagotu** nahi, ondo dakit hori. Koro Navarro

Bilbon izango zuen elkarretaratzearen perspektibak **areagotu** egin zion pausoen erritmoa. Josu Landa

Zerk **areagotu** die, ordea, urduritasuna? Migel Angel Mintegi

Eguraldiaren aldaketa mendearen hasieratik sumatzen zen, eta uzta txarrak eta goseteak **areagotu** zituen; 1315-1317ko goseteak, adibidez, Iparraldeko Europa osoari eragin zion. Koro Navarro

Nola bainekien, halaber, ezen ene pentsu eta erreflexione guztiak ezin izan zitezkeela sukai berriak baizen, ene barrengo sua **areagotuko** zutenak, hala permatu eta entseiatu nintzen, handik harat, anaiaren eta Elbiraren urratsen eta aztarnen isil-gordean jarraikitzerat, egia neure begiz frogatu ahal izaiteko. Joan Mari Irigoien

Horrela bada, produktu gehiago izateak gaitasunak eta aukerak **areagotu** ditzake, baina ez nahitaez, hori ez da azken helburua, bidea baizik. Iñaki Heras

Agintariek haren aurka hartu zituzten neurriek **areagotu** baizik ez zuten egin liburuaren ospea. Jon Muñoz

I. jaunari, **areagotuak** baitzituen ikusmena eta estetikarekiko sentiberatasuna, bereziki jasangaitz zitzaizkion aldaketa horiek. Xabier Olarra

Gosearen gezi hilgarriak bota eta suntsitu egingo zaituztet; gosea **areagotuko** dizuet, ogi-hornidura guztia kenduz. Elizen arteko biblia

Ez **areagotu** bihotz-saminduaren nahigabea, ez itxaronarazi zeure emaitza beharrean dagoenari. Elizen arteko biblia

Kontsumoarekin ere antzera gertatzen da: interes tasak apalagoak direnez, merkeagoa da kontsumitzaileentzat ere kreditua eskatu eta gastua **areagotzea**. Iñaki Heras

3 (egin aditzarekin)

Lehendik ere astunegia zirudien kargari zioten narda **areagotu** egin zen fiskoaren gosearen gai zirela ikustean. Iñaki Iñurrieta

Iskanbila **areagotu** egin zen, amorru betean egiten genuen oihu, inolako frogarik gabe sinetsi genuen komunistaren edo juduren baten boikotagatik joan zela argia. Anjel Lertxundi

Munduko biztanleriaren arteko desberdintasunak **areagotu** egin diren neurrian, txiroen egoerak ere okerrera egin du. Iñaki Heras

Zeren, gizon zuriak indiar horien lagun egin zirenetik, berretu, emendatu eta **areagotu** egin baitziren borroka haiek, gizon zuriek bulkaturik, eta hargatik jartzen zituztela zentinelak eta begiraleak gauez ere. Joan Mari Irigoien

Eguerdia hurbilduz joan heinean bihotzaren erritmoa bizkortu eta urduritasuna **areagotu** egin zitzaion. Migel Angel Mintegi

Gero, zaletasun hura **areagotu** egin zitzaioan, noiz eta, Oñatiko unibertsitatean studiatzen ari zela, bertze pintore bat ezagutzeko parada izan baitzuen, ez nauk oroitzen orain haren izenaz. Joan Mari Irigoien

Eta, behin haserretzen bazen, haren kolerak ez zuen ematzeko husgunerik, ez baretzeko atseden-lekurik edireiten: aitzitik, handitu eta **areagotu** egiten zitzaion, harik eta mihian eta odolean lehertzen zitzaion arte, or errabiatu bat iduri, adausia eta ausikia baterat zituena. Joan Mari Irigoien

Ekonomilarien abstrakziorako eta ereduak erabiltzeko joera nabarmen horrek **areagotu** egiten du egoera edo gertakari baten aurrean hipotesiak ezartzeko jaidura. Iñaki Heras

Garapen iraunkorraren helburuak eta garapen global baten izaera integratzaileak **areagotu** egiten dituzte instituzio nazionalentzako zein nazioartekoentzako arazoak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Tiberiok **areagotu** egin zuen Lege Papiarraren gogortasuna, eta debekatu egin zion hirurogei urteko gizon bati berrogeita hamar urte baino gutxiagoko emakume batekin ezkontzea. Iñaki Iñurrieta

Fenomeno hori, dudarik gabe, **areagotu** egin zuen Bigarren Mundu Gerraren amaieraren ondoren izan zen industria-trukeen liberalizazioko mugimendu orokorrak. Koro Navarro

Halako apreziazio batek estatubatuar enpresen lehiakortasun/prezioari eraso egiten zion, eta **areagotu** egiten zuen merkataritza-defizita. Koro Navarro

Haren aurpegian islatuta zegoen xalotasunak, bestalde, xarma **areagotu** egiten zion. Migel Angel Mintegi

Eta bere zaletasun berriak zaharra **areagotu** besterik ez zuen egin. Patxi Zubizarreta

3 (era burutua izenondo gisa)

Ezin konta zitzakeen iluntasun **areagotu** hartan, baina armada handia zelakoan zegoen, milaka eta milaka gizaki. Agustin Otsoa

1793an Pekingera iristea Perry komodoroaren eskoadroia Yedo badiara hirurogei urte geroago iristea bezain froga argigarria izan zen Mendebaldearen botere **areagotuarena**. Iñaki Mendiguren

5 ***errealitate areagotu*** *(corpusean ez dago; ETCn **137** agerraldi)*

Errealitate areagotua benetako mundu fisikoaren zuzeneko edo zeharkako ikuspegi bat da, zeinen elementuak areagotuak (edo osatuak) agertzen diren ordenagailuz sortutako estimuluen bitartez, esaterako, soinuak, bideoak, grafikoak, edo GPS datuak. ETC-entziklopedia

Eta input horien izaeraren arabera, errealitate fisiko, errealitate birtual eta **errealitate areagotua** bereiz ditzakegu. ETC-literatura, saiakera

Eta Paulo Correa da Silvak Vicomtech enpresarekin **errealitate areagotuari** buruzko lana egin du. ETC-prentsa

Errealitate areagotuaren teknologiarekin, ordea, erabiltzaileak mundu erreala ikusten duen bitartean, alegiazko irudiak mundu horretan gainjarrita agertzen zaizkio. ETC-prentsa

Eta **errealitate areagotuak** hartuko duen garrantziaz ere adibide harrigarriak eman zituen. ETC-prentsa

Iragan urteak utzitako berrikuntza teknologikorik azpimarragarriena da Googleren **errealitate areagotuaren** proiektua. ETC-prentsa

Doc doktoreak (Christopher Lloyd) Hill Valley herria ikusten du betaurreko berezi batzuekin, **errealitate areagotuarekin**. ETC-prentsa

Sistema horretan bi teknologia motak egiten dute bat: **errealitate areagotuko** teknikek eta denbora errealeko elektroentzefalograma teknikek (EEG). ETC-prentsa

Pokemon Go, **errealitate areagotua** erabiltzen duen aplikazioa, nagusi bihurtu da kalean. ETC-prentsa

Errealitate Areagotuak errealitate fisikoan dagoenari gauza gehigarriak eransten dizkio, pantaila baten bitartekaritzaren bidez. ETC-prentsa

Fikzioa eta egiazkoa horrela nahasteari **errealitate areagotua** deitzen zaio eta batek daki nora eramanen gaituen. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ahaleginak areagotu egin** (3); **aldea areagotu egin** (3); **arazoa areagotu** (6); **arazoak areagotu egingo** (3)
>
> **areagotu ahala** (10); **areagotu baino ez** (34); **areagotu baizik egin** (3); **areagotu baizik ez** (10); **areagotu behar dela** (3); **areagotu beharko** (4); **areagotu beharra** (5); **areagotu besterik ez** (24); **areagotu da** (19); **areagotu daiteke** (5); **areagotu daitekeela** (3); **areagotu dela** (7); **areagotu delako** (5); **areagotu dezake** (6); **areagotu dira azken** (3); **areagotu direla** (6); **areagotu diren** (6); **areagotu ditu** (16); **areagotu dituela** (8); **areagotu ditzake** (3); **areagotu du** (31); **areagotu duela** (11); **areagotu duen** (3); **areagotu dute** (16); **areagotu dutela** (3); **areagotu edo** (3); **areagotu egin behar** (7); **areagotu egin beharko** (3); **areagotu egin da** (34); **areagotu egin dela** (16); **areagotu egin dezake** (3); **areagotu egin dio** (3); **areagotu egin dira** (27); **areagotu egin direla** (9); **areagotu egin ditu** (5); **areagotu egin du** (18); **areagotu egin dute** (7); **areagotu egin omen** (3); **areagotu egin zen** (32); **areagotu egin zion** (3); **areagotu egin ziren** (27); **areagotu egin zituen** (6); **areagotu egin zitzaion** (14); **areagotu egin zitzaizkion** (3); **areagotu egin zuen** (22); **areagotu egin zuten** (8); **areagotu egingo da** (11); **areagotu egingo dela** (3); **areagotu egingo dira** (4); **areagotu egingo du** (5); **areagotu egiten da** (23); **areagotu egiten ditu** (4); **areagotu egiten du** (27); **areagotu egiten duela** (5); **areagotu egiten dutela** (4); **areagotu egiten zion** (4); **areagotu egiten zuen** (15); **areagotu egiten zuten** (8); **areagotu ere egin** (4); **areagotu ez** (5); **areagotu genuen** (3); **areagotu nahi** (13); **areagotu zidan** (6); **areagotu zion** (3); **areagotu ziren** (26); **areagotu zituen** (9); **areagotu zitzaidan** (4); **areagotu zitzaion** (11); **areagotu zuen** (24); **areagotu zuten** (4)
>
> **arriskua areagotu egiten** (3); **arteko aldea areagotu** (3); **arteko borrokak areagotu** (7); **asko areagotu** (8); **aurkako erasoak areagotu** (3); **beldurra areagotu** (8); **berriak areagotu** (3); **borroka areagotu** (3); **borrokak areagotu dira** (8); **desberdintasunak areagotu egin** (4); **edo areagotu** (4); **egoera areagotu** (4); **eraginkortasuna areagotu** (3); **erasoak areagotu egin** (3); **ere areagotu egin** (5); **errepresioa areagotu** (4); **ezinegona areagotu** (4); **eztabaida areagotu** (4); **garrantzia areagotu** (5); **gatazka areagotu** (7); **gogoa areagotu** (5); **gosea areagotu** (3); **guztiak areagotu** (3); **hilabeteotan areagotu** (3); **hori areagotu egin** (13); **hori areagotu egingo** (4); **hori areagotu egiten** (7); **horiek areagotu egiten** (4); **horrek areagotu egin** (8); **horrek areagotu egingo** (3); **horrek areagotu egiten** (13); **hura areagotu** (5); **indarkeria areagotu egin** (6); **inpresio hori areagotu** (3); **interesa areagotu** (3); **izanak areagotu** (3); **izugarri areagotu zen** (3); **jakin mina areagotu** (5); **jazarpena areagotu egin** (3); **joera areagotu egin** (4); **joera hori areagotu** (7); **kezka areagotu egin** (4); **kezka hori areagotu** (3); **kontrola areagotu** (3); **kontrolak areagotu** (5); **kontsumoa areagotu** (5); **krisia areagotu** (10); **kritikak areagotu** (4); **lana areagotu** (3); **lehia areagotu** (3); **liskarrak areagotu** (7); **malgutasuna areagotu** (4); **mina areagotu egin** (4); **nabarmen areagotu** (6); **nahasmendua areagotu** (3); **nazioarteko konkurrentzia areagotu** (3); **neurriak areagotu dituzte** (4); **neurriak areagotu zituzten** (3); **nola areagotu** (4); **pobrezia areagotu** (4); **politika areagotu** (3); **politikoa areagotu** (3); **prekarietatea areagotu** (5); **presioa areagotu** (7); **protestak areagotu** (4); **sakabanaketa areagotu** (3); **samina areagotu** (3); **segurtasun neurriak areagotu** (12); **sufrimendua areagotu** (6); **tentsioa areagotu egin** (3); **tentsioak areagotu** (3); **urduritasuna areagotu** (4); **zalantzak areagotu egin** (3)
>
> **boterea areagotua** (4)
>
> **areagotuko da** (7); **areagotuko dela** (3); **areagotuko den** (3); **areagotuko dira** (5); **areagotuko direla** (10); **areagotuko ditu** (9); **areagotuko dituzte** (3); **areagotuko dituztela jakinarazi** (3); **areagotuko du** (16); **areagotuko duela** (6); **areagotuko dute** (3); **areagotuko lirateke** (5); **areagotuko litzateke** (3); **areagotuko luke** (4); **arriskua areagotuko** (3); **asko areagotuko** (6); **erasoak areagotuko** (3); **ongizatea areagotuko** (5); **prekarietatea areagotuko** (3); **protestak areagotuko** (3)
>
> **areagotuz doa** (10); **areagotuz doaz** (3); **areagotuz joan da** (3); **areagotuz zihoan** (6); **hori areagotuz** (4)
>
> **arazoak areagotzen** (3); **areagotzen ari da** (23); **areagotzen ari dela** (8); **areagotzen ari den** (6); **areagotzen ari dira** (28); **areagotzen ari direla** (6); **areagotzen ari zela** (4); **areagotzen ari zen** (4); **areagotzen bada** (3); **areagotzen da** (13); **areagotzen dio** (6); **areagotzen dira** (6); **areagotzen ditu** (6); **areagotzen duela** (5); **areagotzen duen** (4); **areagotzen dute** (12); **areagotzen dutela** (6); **areagotzen duten** (8); **areagotzen joan** (3); **areagotzen zen** (4); **areagotzen zion** (3); **areagotzen zioten** (4); **areagotzen zituen** (3); **areagotzen zuela** (3); **areagotzen zuen** (6); **arriskua areagotzen du** (3); **arteko tentsioa areagotzen** (3); **balioa areagotzen** (3); **borrokak areagotzen ari** (4); **da areagotzen** (3); **edertasuna areagotzen** (3); **efektua areagotzen du** (3); **ekintzak areagotzen ari** (3); **erasoak areagotzen** (3); **ere areagotzen** (3); **erresistentzia areagotzen** (3); **gaitza areagotzen** (3); **hazkundea areagotzen** (3); **hori areagotzen** (3); **indarkeria areagotzen ari** (3); **itxura areagotzen** (3); **izateko arriskua areagotzen** (4); **kezka areagotzen** (4); **krisia areagotzen** (3); **lehia areagotzen** (3); **neurriak areagotzen ari** (3); **prekarietatea areagotzen** (3); **sufrimendua areagotzen** (3)

---

areagotze 1 *iz* aipatzen dena areago gertatzea.

Halabeharraren **areagotze** bat baldin bada loteria, kosmosean kaosak aldizka txertatzen duen pizgarri halako bat. Juan Garzia

Zure amak zure tristuraren **areagotze** hori maiteminaren **areagotzeari** egotzi diola. Jon Muñoz

Gizartearen eta kontsumitzaileen arreta edo sentiberatasun **areagotze** horretan eragin itzela izan du GKEen eta hirugarren sektorearen hedapenak. Iñaki Heras

Konkurrentziaren **areagotzea** ez da manufakturetan bakarrik gertatu. Koro Navarro

Zor publikoaren **areagotzea** kontrolatzeko. Iñaki Heras

Demokraziaren eta industrialismoaren eragina gerran; adibidez, gerren **areagotzea** Frantziako Iraultzaz geroztik. Iñaki Mendiguren

Kontsiderazino haiek ene beldurraren **areagotzea** ekarri zuten. Joan Mari Irigoien

Bilakaera hori, nazioarteko zuzeneko inbertsioen **areagotzearen** ondorio baino areago, nazioarteko merkataritzaren moteltzearen emaitza izan zen. Koro Navarro

Herrialde jakin bateko barne eskaria **areagotzeak**, herrialde horretako barne ekoizpena sustatu ordez, inportazioak areagotu ditzake. Iñaki Heras

Ekoizpenaren **areagotzeak** ingurugiroaren arazoak larrituko ditu eta hazkundea ez omen da bateragarria ez epe luzera, ezta ertainera ere. Iñaki Heras

Hazkunde ekonomikoaren **areagotzeak** ez baitu, nahitaez, ongizatearen hobekuntzarik eskatzen. Iñaki Heras

Egundo ezagutzen den pozoirik toxikoenetako bat botulina delarik -*Clostridium botulinum* mikroorganismoak "fabrikatzen" duena-, elikagai berriek oraingo gaixotasunen **areagotzeaz** gainera berririk ere ekarri eta jeneralizatuko dute. Edorta Agirre

Eskaria edo gastu osoaren hazkundeaz edota ekoizpen kostuen **areagotzeaz** sortzen omen da inflazioa. Iñaki Heras

Buruko minaren **areagotzearekin**, burukoaren azpiko geriza iluna bilatu nuen, gorputza itzulikatuta. Aingeru Epaltza

2 (izenondoekin)

90eko urteetan indar **areagotze** handia izan zuten GKEk eta bestelako mugimendu sozialek. Iñaki Heras

Pobretzearen **areagotze** izugarria, XIX. mendean ekonomia politikoaren gai nagusia izan zena, industria-iraultzak eragindako aldaketa ikaragarrien emaitza nagusietako bat izan zen. Koro Navarro

Nazioarteko finantza trukeek, eta bereziki jarduera espekulatiboek, **areagotze** itzela izan dute azken urteetan. Berria - Harian

1961ean, neurologo amerikarren artean nabarmenetako bat, Norman Geshwind, Dostoievskiren bizitzan eta idatzietan lobulu tenporaleko epilepsiak zuen eraginaz mintzatu zen; 1970etako idazki batean zioenez, emozio-bizitzaren **areagotze** bitxi bat nabaritzen omen zitzaien LTEa zuten gaixoetariko batzuei (baina baita murrizte bat ere): ardura ohiz kanpokoa "gai filosofiko, erlijioso eta kosmikoez". Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan)

Produktibitate-**areagotzea** ekonomia hazkundearen iturri nagusia da. Iñaki Heras

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **areagotzea baino ez** (3); **areagotzea besterik ez** (9); **areagotzea da** (12); **areagotzea dela** (7); **areagotzea ekarri** (5); **areagotzea ekarriko** (3); **areagotzea eragin du** (3); **areagotzea ez** (3); **areagotzea izan zela** (3); **areagotzea zen** (3); **atxikimendua areagotzea** (3); **erabilera areagotzea** (3); **eraginkortasuna areagotzea** (4); **errepresioa areagotzea** (6); **kontrola areagotzea** (3); **kontsumoa areagotzea** (3); **laguntza areagotzea** (3); **lehiakortasuna areagotzea** (4); **segurtasun neurriak areagotzea** (3); **sufrimendua areagotzea** (10); **tentsioa areagotzea** (3)
>
> **areagotzeko arriskua** (3); **areagotzeko asmoa** (3); **areagotzeko deia** (3); **areagotzeko eskatu** (6); **areagotzeko neurriak** (6); **areagotzeko xedearekin** (3); **autonomia areagotzeko** (3); **erabilera areagotzeko** (4); **ez areagotzeko** (5); **kontrola areagotzeko** (4); **kontrolak areagotzeko** (3); **lehiakortasuna areagotzeko** (11); **neurriak areagotzeko** (7); **plazerra areagotzeko** (3); **segurtasuna areagotzeko** (3); **tentsioa areagotzeko** (3)

---

arean 1 (ezezko esaldietan) ezer ez.

Apur bat irrikaz nago, badira aste bi **arean** ez dakidala Karlosi buruz. Urtzi Urrutikoeetxea

2 (baiezko esaldietan) zerbait.

Orduan, edo **arean** geroago, edo goizaldean beharbada, edo batek daki itzartzekotan nintzelarik ez ote zen izan,amets egin nuen. Edorta Jimenez

3 *adlag* segurki, dudarik gabe.

Lasaitu egin zen Roma, **arean**. Unai Elorriaga

Logika honexek lotu zuen, **arean**, Berria-ko kazetaria ostegunean. Iñigo Aranbarri

Judutzat jo ninduelako, Martin Mihurubikoa judutzat lehendik joa zuen legez, eta ene lagunarena isilik gordetzeko zeukan arrazoi berberagatik, **arean** horrexegatik isildu zen. Edorta Jimenez

4 ***arean bai*** zer edo zer bai.

Edo **arean bai**, ze ni neuk irentsi egin nuen,ahora eskukadaka eroanez. Edorta Jimenez

5 ***arean bere*** izan ere.

Arean bere, bazen arrazoirik moneta paperaren garaian, paper horrek erreka arin jo zuela, hutsalketa akzioa gai zibiletan ere ezabatzeko. Andres Urrutia

6 ***arean ere*** *(corpusean ez dago; ETCn **134** agerraldi)*

Arean ere, gizakiei ondasunak ematen zaizkie bizitzak sorrarazten dituen beharrizanak asetzeko. ETC-literatura, saiakera

Egia esan, erromeriaren azken dantzaldiak ziren, jende gutxiago zegoen inguruan eta argirik **arean ere** ez. ETC-literatura, saiakera

Arduratu behar dugu, bada, guk geuk albora utzi behar ditugun, edo **arean ere** ez ditugun, bikaintasunak lortzera hel daitezen besteak. ETC-literatura, saiakera

Jendeak ez zuen, ezta **arean ere**, halakorik egundo pentsatuko, bere hitz egiteko modu zehatza eta agerkera neurtua liluragarriak bilakatzen zirelako. ETC-literatura, saiakera

Hori gutxi ez, eta bere **arean ere** sekulako gabeziak ari da erakusten. ETC-prentsa

Arean ere, Gipuzkoan ez dago buruko gaixotasunetarako ospitale arreta publikorik, eta zerbitzu hori eskaintzen duten erietxe guztiak pribatuak dira. ETC-prentsa

Arean ere, Iruñean zegoen García Escamez jeneralak gobernadore militarrari estatu-kolpearekin bat egin zezala agintzeko deitu zionean, honek, Andres Fernandez Piñeruak, "¡Viva la República! " oihukatuz erantzun zion. ETC-prentsa

Arean ere, zerbitzu publikoa da errepideen mantentze lana, nahiz eta enpresa batzuei azpikontratatuta egon: aldian-aldian, berritzen dira adjudikazioak. ETC-prentsa

Arean ere, Barne-merkatua Harmonizatzeko Bulegoaren (BMHB) egoitza Alacanten dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bat-batera, besteekin komunikatzeko tresna gisa uler daiteke, **arean ere**, emozioen espresioa ahalbidetzen baitu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina badira, berriz, beste batzuk -nola baitira idaztea, pintatzea, jostea, golde-nabarrean eta **arean ere** aritzea-, ez baitira ongi egiten, beti kontu edukitzen dela eta aitzinera artez behatzen dela baizik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arean ere, estimatzen duzun pertsona bati buruz diharduzunean arriskua eskribitzen duzun lerro bakoitzean zain daukazu. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 ***arean eta***

Milango aurrelariak defentsak gaizki aldendutako baloi batekin egin zuen topo **arean eta** bigarren gola egin zuen. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 1 aldiz agertzen direnak)

arean bai (4); **arean beraren** (1); **arean beraren ardurakoa** (1); **arean bere** (2); **arean berriro** (1); **arean bertan** (1); **arean bertan hiltzen** (1); **arean bizi** (1); **arean bizi direnentzako** (1); **arean erabakiak** (1); **arean erabakiak hain** (1); **arean esaten** (1); **arean ez dakidala** (1); **arean ez zen** (1); **arean ezerezean** (1); **arean ezerezean geratzen** (1); **arean gaitza** (1); **arean geroago** (1); **arean harexen** (1); **arean harexen adur** (1); **arean hitzek** (1); **arean horregatik** (1); **arean horrexegatik** (1); **arean horrexegatik isildu** (1); **arean ikasita** (1); **arean ikasita egin** (1); **arean irakatsi** (1); **arean jakin** (1); **arean jakin barik** (1); **arean mezu** (1); **arean mezu bat** (1); **arean sendabidea** (1); **arean sendabidea ere** (1); **arean utziko** (1); **arean utziko zidala** (1); **bazeukala eta arean** (1); **berak arean** (1); **dienez arean** (1); **dienez arean esaten** (1); **motorrez arean jakin** (1); **nahi du arean** (1)

---

areatza ik **hareatza**.

---

areetar *izlag/iz* Areetakoa, Areetari dagokiona; Areetako biztanlea.

Areetarrari asko kostatu zitzaion partidan sartzea, eta kantxan eroso mugitzen hasi zenerako, bi pilotarien arteko tartea zabalegia zen. Berria - Kirola

---

aregotu ik **areagotu**.

---

areka **1** *iz* lubakia, lur erretena.

Kontua da ilunpean aurrera doala, bat-batean, **areka** zulotik itzal mozorrotu bat ikusi duela ateratzen eta zera esan diola: etzazula zubia gurutzatu. Pello Lizarralde

Janzki eta gorbata dotorez jantzitako gizon bat zetzan errepide bazterreko **areketako** batean, gu gentozen aldeko **arekan**, mendatearen izenaren eta alturaren berri ematen zuen karteletik hurbil. Juan Luis Zabala

2 irud/hed

Elizak ere hobeki langile aldeko lan horiek askatasunaren **areka** zabaletik Aberrirantz zuzentzea? Jokin Urain

---

arenga *iz* hitzaldi sutsua.

Alde batetik, jasanezinak zaizkio beren buruan zorri nazionalistak sumatzen ez eta hedabideetatik besteen bartzak **arenga** belikoz ito nahian dabiltzanak. Markos Zapiain

---

areola *iz* titiburua inguratzen duen koloreztatutako larruazala.

Uste nuen baino ederragoak ziren, eta tente-tente eginda zeuden pintatuta ziruditen **areolen** zirkulu perfektuetan... nire laztanen zain. Migel Angel Mintegi

---

areopagita areopagoko epailea. *iz*

Dionisio **Areopagitak** idazten digunez, Jainkoa irudika daitekeen guztia baino askoz gorago dago. Joan Mari Lekuona

---

areopago *(orobat **Areopago**) iz* antzinako Atenasen, auziegi gorena.

Atenastarrek **areopagoan** azaltzen zituzten bere buruaz beste egiteko zituzten arrazoiak: gero sastagaia hondoratzen zuten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hartu zuten, bada, berekin eta, **Areopagora** eramanik, honela galdetu zioten: "Jakin al daiteke zer den irakasten duzun doktrina berri hori? Elizen arteko biblia

Paulo honela mintzatu zen, **Areopago** erdian zutik: "Atenastarrok, edonola ere, guztiz erlijiozale zaretela ikusten dut. Elizen arteko biblia

Alabaina, batzuk elkartu zitzaizkion eta sinetsi egin zuten; haien artean, Dionisio **Areopagokoa**, Damaris izeneko emakume bat eta beste zenbait. Elizen arteko biblia

---

areostilo *izond/iz* tenpluez eta kidekoez mintzatuz, zutabez ornitua dena.

Tenplu **areostiloetan**, diametroari altueraren zortzirena emanez egin behar dira kolomak. Santiago Iruretagoiena

Tenplu **areostiloetan** ez da komeni ez harrizko eta ez marmolezko arkitrabeak erabiltzea, zurezko habe etenik gabeak baizik. Santiago Iruretagoiena

Bost dira tenpluen altxaera-motak eta hauek dira horien izenak: piknostiloa, hau da koloma-lerro zerratuak dituena; sistiloa, tarte handixeagoarekin dauzkanak; diastiloa, tarte oraindik handiagoarekin; **areostiloa** kolomarteak komeni baino irekiagoak dituena; eustiloa, tarteak egoki banatuta daudenean. Santiago Iruretagoiena

Areostiloak, adibidez, altueraren bederatzi edo hamar zatiko diametroa izango balu, ahula eta eskasa ikusiko litzateke. Santiago Iruretagoiena

Areostiloetan libre geratzen da norberak neurriak bere nahierara ezartzea. Santiago Iruretagoiena

---

arerio *(ETCn **24.142** agerraldi)* **1** *iz* etsaia. ik **kontrario**; **aurkari**.

Senadore izendatu zuen bere zaldia, bere semea jan zuen Saturnok bezala egiteagatik, bere ejerzitoa itsasertzera gidatu eta zera esan zuen gero, dena broma zela, **arerioa** asmatu egin zuelako; jaungoiko bezala adoratua izan nahi zuen. Bernardo Atxaga

Metalezko hegalen azpitik ikus zitezkeen lur eremuetan ezarritako **arerioen** posizioei antzematen agortu nituen gehienbat Frantziako gudarostearen zerbitzura igarotako sei urte haiek. Aritz Gorrotxategi

Nik esan ohi ditudan gauzek eta egin ohi ditudan gauzek, ez dute inolako garrantzirik, bakearen izenean esan eta egiten ditut, inolako liskar eta **arerioik** ez sortzearren esan eta egiten ditut. Mirentxu Larrañaga

Fariasa piztuta joaten nintzen arratsaldeko txandara, tailerrera, Che Guevara purua eta metraileta hartuta joaten zen bezala, **arerioari** beldurrik ez eta norbanakoaren errebeldia piztuta baineraman. Jon Maia

Bi Espainiok, izan ere, elkarren txit **arerioak** alderditarki, arima edo jeinu espainolaren patriotismoan elkarrekitsuak dira biak, are zein baino zeinago haren ardura santuan. Joxe Azurmendi

Gizonek bezala **arerioen** kontra frogatuko dituzte beren kalkuluen formulak. Josu Zabaleta

Baina, gure aurrez aurre, **arerioa** aienatu egin da nonbait. Mirentxu Larrañaga

Arerioak berez sortzen zaizkizu, zuk konprenitu gabe nola. Xabier Montoia

Goiz eta adoretsu ekin diot gaurko ibilbideari, baina lehenengo orduetako tartea ez da lar lagungarria izan: arimarik gabeko eremua, aldats gora etengabea, haize **arerioa**, laino oso trinkoa... Jon Arretxe

Alegia,Drake hari deabruak behin halako mirail edo ispilu sorgindua eman ziola, eta harrezkero ingelesak harexen azaleran ikus zezakeela **arerioaren** ontziak non zeuden, zenbat eta zelakoak ziren. Edorta Jimenez

Untxiari zahartzaroa iristen zaionean, geldo eta astun bihurtzen da, eta ezin izaten die **arerioei** ihes egin. Patxi Zubizarreta

1338tik aurrera, Ehun Urteko gerrak Frantziaren erdia erraustu zuen, eta bi **arerioen** ekonomiak akitu zituen. Koro Navarro

Eta berriro ere bakarrik sentitu zen aspaldiko **arerioa** zuen bizitzaren aurrean. Anton Garikano

Eskertzekoa da hori, **arerioa** non kokatu erabakitzeko orduan. Hasier Etxeberria

Begiratu gabe ikusten zekien, eta inguruko guztia aztertzen, balizko trabak edo **arerioak** usaintzeko. Fernando Morillo

Ez nikek jasango hire **arerioarengandik** halakorik. Juan Garzia

Artea baino gorroto ez zuena, hura baitzuen **arerioa**; bere maitearen begitartea lapurtzen zioten paletak eta pintzelak eta gainerako tresna gaiztoek bakarrik ikaratzen zutena. Koro Navarro

Ikusten zuen, esaterako, Portugalekin federazioa nahi zutenek **arerioentzat** itsasoa baino ikusten ez zutenen intolerantzia berberaz jarduten zutela. Bego Montorio

Eskarmentuz zekien solaskidea - eta haren antzekoak - adeitasunez hartu beharreko **arerioak** zirela. Patxi Zubizarreta

Atzean geratzen saiatu zen aita, ohi zuen bezala tiro eginez, baina aurrera egiteko agindu zioten, baioneta ipinita; gider-kolpeka kendu zituen paretik lehen **arerioak**, baina piztia talde baten erdian ikusi zuen bere burua, elkarri gupidarik gabe sastaka eta tiroka. Juan Kruz Igerabide

Konturatu da bigarren bertsoaren bidetik ez daukala ezer, bere **arerioak** bizkor eta lotsagabeki erantzun baitio. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Arerioa beldurtzea gerra-tresna handia da. Pako Aristi

Gerretara jolasten genuen, eta zerraldo erortzen ginen eta segundo batzuk barru jaikitzen ginen, guk akabatutako **arerioak** ere jaikitzen ziren bezala, jokoan jarraitzeko, gerraren jolas hartan. Joseba Sarrionandia

2 (izenondoekin)

Robert Liston, bestalde, gizon zipotz eta harroputza zen, ingurukoekin batere ondo konpontzen ez zen pertsona, eta **arerio** handienak sendagileen artean sortu zitzaizkion: ezin zuten begien aurrean ikusi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gehienetan ez da ezer gertatzen, noski, baina ikurduna -edozein ikurdun- **arerio** posible bat da beti. Iban Zaldua

Eta Smithen kasuan, esaterako, bere ideiak sarri baino sarriagotan gaizki interpretatu dituzte bai haren aldeko ustezko defendatzaileek bai kontrako **arerio** sutsuenek ere. Iñaki Heras

Ivan Ogareffek zelatan so egiten dio bere **arerio** harrigarriari, larritasun handiz. Karlos Zabala

Bera da, **arerio** politikoari heriotza opa arren, euskal kazetaritzaren maisu. Iñigo Aranbarri

Areago, bozen bezperan **arerio** nagusia agertu zaio telebistan, eta 2001eko irailaren 11n haien presidentea garaiz erreakzionatzeko gai izan ez zela gogorarazi die estatubatuarrei. Berria - Mundua

Mallorcak ere Oviedo **arerio** zuzena hartu zuen (4-2). Berria - Kirola

Azkenean, doilorkeriaren doilorkeria, bera salatzaile izanik, bere **arerio** dohakabea atxilotzeko dekretua lortu zuen arduradun kriminalarengandik. Juan Martin Elexpuru

Gogoan dut giza arimaren kontu horrek grazia egin zidala, eta, aldarte on hura aprobetxatuz, erabaki nuen nire **arerio** izukaitz haien aurrean barrez lehertzea. Karlos Linazasoro

Neure **arerio** kutunena zeruan topatu banu nahiago nik, Horazio, egun hori ikusi izana baino! Juan Garzia

Bere **arerio** nagusia, Draco Malfoy bera ikusteak ere poztu egingo zukeen, Hogwartsekoa ez zela amets hutsa izan ziur egoteko... Iñaki Mendiguren

Bata, Brezo neskaren aurpegi haserre itxurakoa, beti bezala errieta eginez edota zerbaiten falta sumatuz; eta bigarrena, bere zorigaitzerako **arerio** anker batek maneiaturiko amaigabeko kate batek ekarriko bailion, berriz ere don Evaristoren agindu ezin arraroagoa zen. Joxemari Iturralde

Halatan, guk orduan bi estatu genituen **arerio** tzar, estatu horiek bestalde, hein batean bederen, gure jende sozial erako eskubideak bermatzen zituzten arren. Itxaro Borda

Badaezpadako zorion hari eutsiko bazion, nahitaezko zuen, zernahi gertatzen zelarik ere, perla beltza bere mendean gorde eta mantentzea behin betiko, handik edo hemendik azal zekizkiokeen **arerio** posible eta etsai ikusezinen aurkako borroka meniarik gabean. Xabier Mendiguren Elizegi

Horretarako naziek SA indarrak lehen eta, urte batzuk geroago, SSak sortu zituzten, karriketan **arerio** politikoen kontra egiteko. Alberto Ladron Arana

Xake jokoan **arerio** adeitsuak bezala: Peoi hau hartzea ahaztu zaizu... Josu Zabaleta

Berak zioenez, " **arerio** baliagarriak", horra. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arerio bat (10); **arerio gisa** (4); **arerio gogorra** (4); **arerio izango** (4); **arerio nagusi** (3); **arerio nagusia** (6); **arerio nagusiak** (4); **bere arerio** (6); **beste arerio** (4); **bi arerio** (7) **elkarren arerio** (5); **haren arerio** (4); **nire arerio** (3)

arerioen kontra (3)

---

areriotasun *iz* etsaitasuna.

Estatuaren eta merkatarien arteko ituna, beraz, XVII. mendeko hiru botere nagusien arteko (Probintzia Batuak, Ingalaterra eta Frantzia) **areriotasunen** joko nahasian zegoen txertatua. Koro Navarro

Halako **areriotasuna** , Ohandok eta haren sokako jauntxoek ederki baliatua, Katxoren lagunek proposaturiko partida batean bukatu zen. Koro Navarro

Ekonomia hartan aldi berean gertatu ziren estatuen arteko **areriotasunak** eta nazio-kapitalismo desberdinen arteko konkurrentzia. Koro Navarro

Oraingo nazioarteko egoera politikoak eta bereziki berrogeitaka urteko AEBekiko **areriotasunak** dolarra baztertu izana ulertzeko arrazoi ugari ematen baditu ere, ez dago argi biziraupenaren eguneroko borrokaren argudioa nahikoa izango den neurri berriari eusteko. Berria - Mundua

Gauza jakina denez, bi logika horien bateratzea da, hein handi batean, inperioen arteko **areriotasunak** areago gogortu eta Lehen Mundu Gerra piztu izanaren arrazoia. Koro Navarro

Nazioen arteko **areriotasun** gogorreko eta ekonomiaren gelditasunezko testuinguru horretan gauzatu zen merkantilismoaren doktrina. Koro Navarro

Areriotasun -sentimendu hura nabaritzean, Martinek utzi egin zion ohandotarren etxera joateari. Koro Navarro

Ez bakarrik ETAren mehatxuengatik, baita Botere Judizialaren zilegitasun eza bultzatu nahi izan duten zenbait jokabide sortu direlako, haren kideen aurkako **areriotasun** giroaren sorrera erraztu dutenak. Berria - Euskal Herria

---

areriotsu *izond* arerioz betea.

Defentsarentzat aldiz, emandako primak exekutiboen lan onarekin lotuta daude, Vodafonek egindako erosteko eskaintza **areriotsuaren** aurrean Mannesmannen balioa 70.000 milioi eurora igotzea lortu zutelako. Berria - Ekonomia

Comcast kable bidezko telebistak iragan astean Walt Disney konpainia erosteko eskaintza publiko **areriotsua** egin zuen. Berria - Ekonomia

Hala, kanpotik etor daitezkeen mehatxuen aurrean erosteko eskaintza publiko **areriotsuak** , alegia defentsarako horma altxatu nahi du Googlek. Berria - Ekonomia

Baina EEP **areriotsu** batekin, ez dut ezer ituntzen. Berria - Ekonomia

---

areriotu, arerio(tu), areriotzen da/du *ad* arerio bihurtu.

Honakook bakarrik aurkitu ditugu guk: **areriotsu** eta **areriotu** . Iñaki Arranz

---

aresoar *izond/iz* Aresokoa, Aresori dagokiona; Aresoko biztanlea.

Bata, zornotzarra; bestea, **aresoarra** (Nafarroa). Berria - Ekonomia

Nikolas Egia, Iruñeko gotzain zela, Peraltako Pierres gaizto hark 1469an Tafallan akatu zuena; Leitzako "Nikolasene" etxeari izena eman zion Nikolas Olaetxea **aresoarrak** ; **Aresoarrek** , ostera, eginahalak egin dituzte leitzarrengandik bereiztearren. Patziku Perurena

Aresoarrak Lezama enpresarentzat egiten zuen lan, eta bi egun baino ez zaramatzan Madrilen. Berria - Ekonomia

Nolanahi ere, bigarren jardunaldian kolpe ederra eman zuten **aresoarrek** , mendean hartu baitzuten Nuarbe, eta jardunaldiko lehen postua eskuratu zuten. Berria - Kirola

Aurrez 600 kilokoen txanda izango da, eta kontuan hartuta Nuarbek bi puntuko aldea kentzen diola Aresori, zail izango da nafarrek 27. txapela izan daitekeena kentzea gipuzkoarrei; gehienbat, kontuan hartuta gero 560ko lehia latza izango dutela **aresoarrek** . Berria - Kirola

---

arestian *(ETCn **6.522** agerraldi; orobat **arestion** g.er.) adlag* duela gutxi, aspaldi ez duela.

Arestian , logelara sartzerakoan, brau gelditu naiz, nortasun moduko zerbaiten bidez nire arreta erakartzen zuen objektu hotz bat sentitzen nuelako eskuan. Monika Etxebarria

- **Arestian** afaria eta orain ohea? Aingeru Epaltza

Arestian ekarri ditut jakitun eta aztiak, hor idatzirik dagoena irakurri eta esanahia azal diezadaten; baina ez dira gauza izan. Elizen arteko biblia

Arestian erran dut: kimika berezia izan zen, beti, bi horien artean, larruz eta barruz hain diferenteak izan arren. Aingeru Epaltza

Esan dizut **arestian** lagun soinujole bat daukadala. Bernardo Atxaga

Arestion aipatu dugun bezala, Lehen Karlistaldiaren karietara izan zitekeen hori. Berria - Kultura

Arestian ikusi gizona da. Ramuntxo Etxeberri

Arestian erran dizut ezen presondegi hartan ez genuela bisitarik, baina egun batean... edo gau batean, hobeki. Joan Mari Irigoien

-Hain zuzen ere, ezagutu al duk **arestian** agurtu dudan jauna? Txillardegi

Nire ondotik **arestian** pasa diren bi horiek ez dituk labartzarrak, nik uste. Txillardegi

Baina, **arestian** aitortu bezala, nire asmoa ez zen gai horri heltzea, baizik eta eranskin honen mezu nagusia azpimarratzea: [...]. Bernardo Atxaga

Haren arnasaren epela sentitzen nuen nire bularreko biloan, **arestian** nire zigarroaren kea haren bularren artean zirimolaka ibili zen moduan. Anjel Lertxundi

-Nor zen, ba, **arestian** etorri eta ehizakia ekarri didana? Jose Antonio Mujika

Errima, **arestian** aipatu dugun bezala, beti da sail berekoa eta errima-hitzen arteko kontsonantziari balio handia ematen zaio. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

-Dozena bat lerro, bai, eta haizeak eraman ditu horiek ere -erantsi nuen, auskalo zergatik; **arestian** gogoratu nahian ibili nintzelako, beharbada. Ramon Saizarbitoria

-Barkatu **arestian** gaizki tratatu bazaitut, baina urduri nago eta, urduri gaudenean, badakizu. Joan Mari Irigoien

Horregatik, **arestian** esan ditugunak elkarrekin trukatzen direnez gero, inoiz aldatu ezin dutenekin osaturik egon behar dute, gauza guztiak erabat ezerez ez dakizkizun. Xabier Amuriza

Arestian esan bezala, nik bizitza pribatua beste interesik ez daukat. Matías Múgica

Kontu bat oroitzen dut, **arestian** erranaren seinale eta aieru. Joan Mari Irigoien

Alde batetik, bero nengoen, eta, bestetik, gihar bat ere mugitzeko ezgauza, **arestian** ikusia genuen hodeizko lastaira bigun haren gainean kulunka bagenbiltza bezala. Juan Kruz Igerabide

Hori nola den jakin ahal dezazun, lehenik **arestian** esana gogoratu behar duzu, haziak era askotara nahasiak dagozela gauzetan. Xabier Amuriza

Liburuko orrialdea pasatzean ohartzen nintzen ez nuela oroit **arestian** irakurria. Koldo Izagirre

Zer darabilt, bada, buruan, **arestian** aipatu oroitzapen haien guztien gainetik? Joan Mari Irigoien

Ziur dago bere buruaz, **arestian** frogatu dugunez. Imanol Unzurrunzaga

-Barkatu, jauna... baina **arestian** erran diodana egia da. Joan Mari Irigoien

Orduan **arestian** egina zidan galdera bera errepikatu zuen-. Jon Muñoz

Dado-jokoaren gorabeherak zirela kausa, ahakarrean ari ziren bortz zaldunak **arestian** , otsoak eta orak iduri, eta orain, berriz, bortzak ari ziren irri-karkaraka, ahuntzaren haragiaz bakeak eta ongundeak egin balituzte bezala. Joan Mari Irigoien

Arestian baino lasaiago zegoen gainera. Migel Angel Mintegi

Kezkaz aztertu nituen, **arestian** baino arretatsuago. Aingeru Epaltza

Tarte luze baten ondoren itzuli zen handik, **arestian** baino ziurtasun handiagoz. Jon Muñoz

Zilegi al zait **arestian** funtsik gabe egindako baieztapenetara itzultzea? Imanol Unzurrunzaga

Katalanek eta euskaldunok antzekotasun handiak ditugula esan dut **arestian**, eta bateko zein besteko administrazio zatiketa da antzekotasun horietako bat. Koldo Zuazo

Amona Sinforosaren irudimena aipatu dut **arestian**, irudimentsua baitzen hura, ezer izatekotan. Joan Mari Irigoien

Onartzen badugu, eta horixe egin dugu **arestian**, emakumeek gure irrika guztiak asetzeko prest egon behar dutela, geuk ere modu berean utzi ahal diegu eurei bereak nahi bezala asetzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Etxe-sail eraiki berri batek beti begimenean edu-ki dudan mendi-puska ikustea galarazten didala-eta hango bazterrak eta baserriak bisitatzen izan naizela esan dut **arestian**. Xabier Mendiguren Elizegi

Uso erromantikoaz mintzatu naiz **arestian**. Joan Mari Irigoien

Hartaz pentsatu berri zuen Mikel Strogoffek **arestian**. Karlos Zabala

Itotzen ari nindunan **arestian**. Karlos Zabala

Horrenbestez, lorategian nengoen **arestian**. Monika Etxebarria

Eta kontatzen zidan guztia nik egia osotzat hartzen nion, erabateko egiatzat, aresti- **arestian** lotsarik gabe gezurretan harrapatu banuen ere. Matías Múgica

Arestion aipatu dugun bezala, Lehen Karlistaldiaren karietara izan zitekeen hori. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aipatu dut arestian (3); **arestian adierazi dugun** (3); **arestian aipatu ditugun** (3); **arestian aipatu dizkizudan** (3); **arestian aipatu dudan** (10); **arestian aipatu dugun** (10); **arestian aipatua** (5); **arestian aipaturiko** (19); **arestian azaldu** (7); **arestian baino** (14); **arestian bezain** (7); **arestian bezala** (13); **arestian bizi** (3); **arestian egin** (3); **arestian erabilitako** (3); **arestian erakutsi** (3); **arestian ere esan** (4); **arestian erran bezala** (15); **arestian erran dizudan** (4); **arestian erran dizuedan** (3); **arestian erran dizut** (3); **arestian erranaren** (3); **arestian esan bezala** (27); **arestian esan dizudan** (4); **arestian esan dudan** (7); **arestian esan dudanez** (5); **arestian esan dugunez** (5); **arestian esan dut** (7); **arestian esan duzun** (3); **arestian esandako** (3); **arestian esandakoa** (3); **arestian esandakoaren** (3); **arestian gertatua** (3); **arestian ikusi** (8); **arestian ikusia** (3); **arestian ikusitako** (4); **arestian kontatu** (3); **arestian mintzatu** (3); **arestian nire** (4); **baina arestian** (6); **buruz arestian** (3); **da arestian** (5); **dira arestian** (3); **dizut arestian** (3); **du arestian** (4); **duzu arestian** (3); **esan dugu arestian** (3); **esan dut arestian** (5); **nik arestian** (3); **nola arestian** (3); **zuk arestian** (4)

---

arestiar *(orobat **arestitar**) izlag/izond* Gabriel Arestirena, Gabriel Arestiri dagokiona.

Beroaldietan, **Arestiar** jatorriko Bilbao haren berri eman ohi zien. Iñaki Iñurrieta

Dena den, hire Bilbo hori oso literarioa duk, oso **arestiarra**. Iñaki Iñurrieta

Arantxa Iturbe, gaurko ipuingile ospetsua, orduan poesia idazten zuena, **arestitarra** gainera, oker ez banago. Xabier Mendiguren Elizegi

---

arestiko *(ETCn **603** agerraldi) izlag* arestian gertatua.

Arestiko armagizonen gorroto bera dago haren begietan eratxikirik, halako etsimendu batek eztitua. Aingeru Epaltza

Orain agertuz gero, ez zen hain zaila izanen harekin bakezkoak egitea eta **arestiko** mokokaldi telefonikoa laido barkatu baina ez atzenduen zakura bidaltzea. Aingeru Epaltza

Hala ere, ezin dituenez pertzepzioak edo **arestiko** oroitzapenak iraunkor bihurtu, 60etan geratua da Greg, orduan galdu baitzuen informazio berria bereganatzeko gaitasuna. Xabier Olarra

Gertatutakoa ulertu eta begiak errealitatera ohitu zitzaizkidanean, **arestiko** paisaia berbera ikusi nuen. Bernardo Atxaga

Orduan bai, osabak guztiz ulertu balu bezala, irri zabal bihurtu zen haren **arestiko** keinu estrainioa. Joan Mari Irigoien

Lana buruturik, **arestiko** urduritasuna poz bihurturik, itzuli zen motozikleta gordeta zeukan tokira. Migel Angel Mintegi

Arestiko baiezkoa bezain biribila espero nuen orain ezezkoa. Aingeru Epaltza

Arestiko mugimendu zehatzak gabe, baldarrago ematen zuen orain, zainak jota. Aingeru Epaltza

-Musika apur bat jarriko dugu -esan du segidan tonu atseginez eta **arestiko** haserrearen arrastorik gabe, bakea egin nahian-edo. Patxi Iturritegi

Eskuartean zuen txiskeroko metxa txirikordatu horixkarekin gora eta behera ari zen eta, **arestiko** esakunea ahoskatu ostean, esku biak libratu zituen zigarro berri bat egiteko. Josu Landa

Oihana ala **arestiko** lekua, aukera gehiagorik ez zaio geldi-tzen. Aingeru Epaltza

Arestiko begitarte konplizea berritu zuen. Aingeru Epaltza

Arestiko deserosotasuna desagertu zaio pastoralgileari, eta, Berlingo irakaslearen arretarekin adoreturik, musuzapia ezpainetatik pasatu, eta galderari erantzuten hasi da: [...]. Anjel Lertxundi

-Harriturik? - **arestiko** urduritasuna atzendua zuela ematen zuen irakasle zaharrak. Alberto Ladron Arana

Ate aldera iritsi zirenean, ordea, Fructuosok, jiratu, eta, **arestiko** burlaizea ezpainetaraturik, niri begira esan zuen: [...]. Inazio Mujika Iraola

-Ume guztiek... ume guztiek dakite, beraz -esan zuen Norak, Andreasek jada ahaztuta zeukan **arestiko** argibide hark beste deusek garrantzirik ez balu bezala. Anjel Lertxundi

Eta horrekin batera ikusi nuelarik Lutezia zutitzen, bularrak erabat bistan, biluzik, atzera piztu zitzaidan -**arestiko** asmo guztiak ahaztuta eta haragi-irrika guztiaz nolabait libratua banintzen ere- atzera piztu zitzaidan, diot, nire lehengo amorrua, nire gizon-ideia ergelen arabera "nirea" behar zuen emakumea biluzik ikusita. Matías Múgica

Berea da, pentsatu zuen, dar-dar egin zuen, eta estalkian bildu zen areago, baina imintzioak bere gorputzaren biluztasunaz ohartzeko balio izan zion, eta orain bere baitan **arestiko** sentsazioen oroitzapenak burutik kendu ezin zuen pentsamendu narritagarri baten kontra egiten zuen borroka. Jon Alonso

Galderak egonezina eman zidan, eta **arestiko** erabaki zigarrorik ez piztekoa ahaztu eta paketea hartu nuen. Bernardo Atxaga

Gure artean izan diren **arestiko** legeak, gai horiek direla eta, larregikoak dira, onura politikoa, morala adina, bi mutur horien artean aurkitzen baita. Andres Urrutia

Orain agertuz gero, ez zen hain zaila izanen harekin bakezkoak egitea eta **arestiko** mokokaldi telefonikoa laido barkatu baina ez atzenduen zakura bidaltzea. Aingeru Epaltza

Hura, ordea, ez zegoen nire izena zeukaten dokumentuen **arestiko** zerrendan. Aingeru Epaltza

Dianak hitz bertze egin zuen, **arestiko** solasera. Aingeru Epaltza

Beroaldia oldarrean zabaldu zitzaion gorputzeko zoko-moko guztietara, eta sentsazio berri hark ahantzarazi egin zion **arestiko** higuina. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arestiko bi (3); **arestiko hori** (3)

arestikoa baino (3)

---

arestion *adlag* arestian.

Arestion aipatu dugun bezala, Lehen Karlistaldiaren karietara izan zitekeen hori. Berria - Kultura

---

areto *(ETCn **54.273** agerraldi)* **1** *iz* jendaurreko jardunaldiak egiten diren gela handia.

Poliki-poliki, **areto** eta korridoreetan zehar, polizia prefekturara iritsi zen. Karlos Zabala

Kale, **areto** eta auditorietan informatzen da, aztertzen da, eztabaidatzen da, ospatzen da. Berria - Mundua

Ikusi ditugu ere zenbait gela edo hobeki erran **areto**, hala nola tesiak aurkezten diren **aretoa** eta **areto** nagusia bere mila jarlekuekin. Herria

Nilok igelak emango ditu borborka: ibaitik irten eta zure jauregian sartuko dira; gela eta **areto** guztietan ibiliko dira eta zure ohe gaineraino ere iritsiko dira. Jose Antonio Mujika

Salomonen bizilekua errege-aulkiaren **aretotik** aparte zegoen, beste **areto** batean; biak tankera berekoak ziren. Elizen arteko biblia

Ozta-ozta errieta bukatu, eta **areto** barren-barrenetik Lehen Antzezle Emakumezkoaren ahotsa entzungo da. Josu Zabaleta

Koreako etxe tradizionaletan, itxura asko izan ditzakeen **areto** bat da marua, kanpora irekia; galeria txiki bat dirudi, erabat irekia, eta ate irristagarri batekin. Juan Kruz Igerabide

Aretoa gainezka dago. Monika Etxebarria

Aretoa ia hutsik zegoen. Monika Etxebarria

Larunbatetan ohi bezala, **aretoa** lepo zegoen ezkongai-bikotez beterik. Joxe Austin Arrieta

Jauregiko atariak eta **aretoak** jendez bete ziren, zahar eta gazte. Juan Kruz Igerabide

Geltokiko **aretoak** -denda eta txartel-leihatilak nonahi- ezin eduki zezakeen inolako antzik Caulfieldek telefono kabinaren kristaletatik ikusi zuenarekin, eta berehala atera nintzen kalera. Bernardo Atxaga

Aretoan musika jotzen hasi ziren, jaun burusoilek egiten zituzten jauzitxoen hotsa entzun zen, eta bere artean esan zuen: "orain lo egin dezaket", eta lo sakon batek hartu zuen berehala. Jose Morales

Bernardo Atxagak Lekuak literaturan hitzaldia emango du Elkartegiko **aretoan**. Berria - Kultura

Han ziren bildurik udalerriko lurjabe eta maizterrik aberatsenak, zurbil eta ikaraturik, udalbatzarraren **aretoan**, behean jendetza txutxumutxuka ari zen bitartean. Koldo Biguri

Bortizkeria modernoaz beren begirada eskainiko dute argazkilari gazteek Bellevue **aretoan**. Berria - Kultura

Lan hori eskaini didate eta nik atsegin handirekin onartu, besteak beste gure liburutegiko irakurleen **aretoaren** erdian baitago haren potreta. Piarres Xarriton

Bolizko buruko makilan bermaturik, urrats geldi eta berdinak eginez joan zen jauregiaren hegal hura eta bere gelak beste gela handiekin, **aretoarekin**, musika-gelarekin eta beste egongelekin lotzen zituen korridorean barrena. Xabier Olarra

Aretoaren atzealdeko mahai batean, Tony Hunter-en aurpegi obalatu arrosa-zuria begiztatu zuen. Lopez de Arana

Ia etxola guztiak itxita zeuden eta **aretoaren** parterik handiena ilunpetan zegoen. Irene Aldasoro

Gaztigatu zidaten fiskalaren galderei erantzuteko, "bai" edo "ez" besterik ez esateko, begiramena gordetzeko **aretoari**, han espainieraz egin behar nuela, betiko zozokeriak. Koldo Izagirre

Aretoz areto ibili nintzen, begi-kolpe arinak emanez bertako koadroei, eta gogoa gero eta entretenituago, harik eta grabatuen **aretora** heldu nintzen arte. Anjel Lertxundi

Maiz ikusiak nituen komikitegian edo jokoen **aretoan**. Juan Kruz Igerabide

Eugeniak Borboiei buruz hitz egin zuen, eta Sabatiniren eskaileraz, Gaspariniren egongelaz -ala alderantziz da? - eta ispiluen **aretoaz**. Ramon Saizarbitoria

Herriko notableek oso begi onez ikusten zuten Luigik aurretik zeukan Ideal **aretoaz** gain beste hura zabaltzea, askoz modernoagoa eta erosoagoa. Josu Landa

Zehaztuta azaltzen zen guztia, atzo goizeko afera bailitzan: gelaren prezioa uztailaren 15 etik 23 ra, botikena, eguneroko zainketena, erditzeko **aretoaren** alokairuarena, fortzepsarena, telefono deiena, baita haurraren gastuena ere! Joxan Elosegi

Aretoetako batean sartu, eta hara zer ikusten duten zure begi zuringotuek: gela bat huts-hutsa, baina kontuz, txoko batean erratz bat dago, ondoan hark jasoak diruditen xakar batzuk dituela. Iñaki Segurola

Sacher hoteleko **aretoetan** aitoren semeen mahaiak prestatzen hasten ziren. Xabier Olarra

Antza denez, Hamleteko protagonisten arimak gazteluko gela eta **aretoetan** ibiltzen dira, baina lur azalaren gainean eraikitakoetan bakarrik. Martin Anso

Nadia lasterka abiatu zen, erabat aztoratuta, beheko **aretoetan** zehar, bere lagunari deika, duke handiaren aurrera eraman zezaten eskaka. Karlos Zabala

Zinema emanaldien agendan Donibane Garazi, Donapaleu eta Mauleko **aretoetako** programazioen berri ere ematen zela. Juan Luis Zabala

-Eta kanta horiek zergatik ez dira, bada, nire **aretoetarako** aproposak edo hauek bezalako sasoietarako? Agustin Otsoa

Aretora sartu aurretik atarian eginarazi ziguten suge-ilaran atzean geneukan morroi ezezagun batek bizkarrean jo eta esan zidan han ez zegoela euskaraz aritzerik, han Españan geundela. Koldo Izagirre

Badrulbudur printzesak hogeitalau leihoekiko **aretora** eraman zuen, guztietan ederrena eta miresgarriena baitzen. Patxi Zubizarreta

Buruko estalkia kendu gaberik igo zen **aretora**. Juan Kruz Igerabide

Pello Eltzaburu Pamielako editoreak gogor kritikatu du debekua, eta erakusketa Iruñeko **aretoren** batean jartzeko bere konpromiso irmoa agertu du. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

EAEko Auzitegi Nagusiaren **Areto** Zibilak edo Penalak. Berria - Euskal Herria

Eta Fillmore East, rock-and-roll **areto** ospetsua. Xabier Olarra

Cristobal Balentziaga Fundazioaren **areto** iraunkorrean egiten den azkeneko erakusketa izango da Maier Bilduma: Apaindura xumearen luxua. Berria - Kultura

Asmo horren lagungarri izan zitekeen hiru filmek izandako harrera ona: nahiz eta ordubetekoak eta telebistarako eginak izan, **areto** komertzialetan ere zabaldu ziren, eta Euskal Filmategiak bideo-kopiak zabaldu zituen. Berria - Harian

Areto komertzialetan filmak euskaraz bikoizten aitzindari izan den elkartea saritu du aurten Gipuzkoako Foru Aldundiak. Berria - Euskal Herria

Auzitegi Nazionalak Madrilgo Casa de Campon epaiketa handietarako propio prestatutako **areto** berezian. Berria - Harian

Ostatuan, ordea, ez zegoen ia inor, eta dena lasai zegoen; **areto** nagusian gehien jota bizpahiru ahotsen murmurio amatatua entzuten zen. Agustin Otsoa

Areto nagusiaren inguruko hormek harlanduzko hiruna erreskada eta zedrozko ohol-erreskada bana zituzten, Jaunaren etxe barruko aretoaren eta atalondoaren tankerara. Elizen arteko biblia

Hauxe duzu **areto** nagusiko altzariteria. Koldo Izagirre

Zaharraren ondoan begiztatu nuenean, **areto** nagusitik ateratzeko aukeratuko zuten ateko bidean aurrea hartu, eta haren ondoan itxaron nien berriro ere. Ramon Saizarbitoria

Bi zerbitzariek dena antolatu eta beren zereginak egiten zituzten bitartean, **areto** nagusira jaitsi zen jauna. Jose Morales

Mathilderen bakarraldi luzeen makulu isil bihurtu zen, bada, Nora, eta hoteleko **areto** publikoetan (piano-gela, kafetegi, joko-mahai) entretenitzen zituzten egunaren hondarrak. Anjel Lertxundi

Urteak eta urteak ematen zituen etxeko beste aldera joan jabe, non baitzeuden kolore anitzeko aretoak, sabaiak armiarma-lanparaz hornituak zituzten **areto** gorri, urdin, berdeak. Xabier Olarra

Eritegia **areto** luze argitsua da, garbitasun handia dago hemen. Koldo Izagirre

Oraindik oso goiz zen arren, urre-koloreko aulki eta ispiluz hornitutako **areto** zuri handia bisitariak hartzeko prest zegoen, argi guztiak piztuta. Jose Morales

Antonio Agaramont eta biok baizik ez ginen **areto** zabal hartan. Aingeru Epaltza

Orduan hobeto aditu da ahots ezti bat, **areto** zabalaren azken txokoko mahai luzean ozen irakurtzen ari zen mutilarena. Jon Arretxe

Lehenbiziko solairuko **areto** zabalenean amona frantsesa zeukan zain. Xabier Olarra

Areto zabal-zabal bat zen, keztatua eta hutsa, eta, hara sartzean, Jainkoaren Etxera bidean bere urratsez gogoeta egiten duena bezala gindoazen. Juan Garzia

Areto karratua zen, korrokoildu samartua. Patxi Zubizarreta

Areto handi bat zegoen sarreran, altura erdira galeria batek inguratua. Irene Aldasoro

Handik jalgirik, sartu zen, ohi duen bezala, **areto** ttipian, jendez jadanik mukuru betean. Jon Muñoz

Aski izan zen zenbait pareta eraistea: egun, hitzaldietarako **areto** txiki bat da, "bonboi-kaxa". Monika Etxebarria

Dena dela, eraikinaren gorenean, hogeita lau leihoekiko **areto** kupuladun bat egin nahi nuke, materialik onenak erabiliz, arte eta simetria gorenekin. Patxi Zubizarreta

Areto errektangeluar handi hartan bizidunik ezer ez zegoen, katu bat izan ezik. Monika Etxebarria

Otordua **areto** espaziotsu batean egin ohi zuen, eta bertan lo kuluxkarako ohe bat prest zeukan. Patxi Zubizarreta

Areto itxi hartan airea ez zen mugitzen. Agustin Otsoa

Ezin konta ahala dantzari bikotek betetzen zituzten jauregiko **areto** ikusgarriak. Karlos Zabala

Sarreran **areto** estali bat dago, baina hilobia bera aire zabalean dago, patio batean. Patxi Zubizarreta

Eritegiko **areto** ilun batean zetzan. Iñaki Mendiguren

Filmaren ikusleari, **areto** ilunean eserita dagoelarik, ezerk ez dio, printzipioz, ez trabarik ez erasorik egiten, eta prestago dago ikusten eta irudikatzen duenari psikologikoki erantzuteko. Josu Zabaleta

Bertan behera utzitako bulego baten edo harrera-gela huts baten antzekoa zen **areto** gangadun hotz eta handi batean bildu zituzten bostak. Jose Morales

Areto sabai-apaletan zehar lasterka, zutabeen inguruka, airean zihoazen zurubietan gora, erlaitzetan galapan, zurrut-harriz zurrut-harri jauzika. Josu Zabaleta

Harry sartu zenean, bat-batean marmarra entzun zen **areto** osoan eta denak batera hizketan hasi ziren. Iñaki Mendiguren

· Hala aitortu zion Ruche jaunak Alberti, ahapeka, bakar-bakarrik egonagatik biak jatetxeko **aretoan**. Jon Muñoz

Nadia, sor eta gor, eta Mikel Strogoff, dardaraz artean, postako **aretoan** gelditu ziren bakarrik. Karlos Zabala

Lagun bakar bat zegoen mezu telegrafikoak bidaltzeko **aretoan**. Karlos Zabala

Jauregian sartu ziren, marmolezko **aretoa** zeharkatu zuten, Joanesek begiak itxita, ez baitzuen oroimeneko mundu zoragarria errealitate etsipenezkoarekin nahastu nahi. Felipe Juaristi

Gaztetxearen perla gaztetxeko **aretorik** ederrenean zegoen, liburuak oraindik ere hantxe, polizien zain. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herriko Klub hura oso gauza ona zen: **areto**-biltoki bat, antzezpenak egiteko eta mintzaldiak eta holakoak antolatzeko. Koldo Biguri

Areto futbolak 1.500 lizentzia eta 120 klub ditu Katalunian. Berria - Kirola

Pilotalekuaren ondoan, lorategi bat paratu nahi dute, saskibaloian eta **areto** futbolean aritzeko pista bat, aska eta erretoki handi bat eta haurrentzako jolas parke homologatua. Berria - Euskal Herria

Areto Futboleko Europako Elkarteak (UFSC) Kataluniako selekzioa onartu du bere barnean. Berria - Kirola

Euskadiko **areto**-futbol selekzioak lagunarteko partida jokatuko du hilaren 18an, Bartzelonan, Kataluniaren aurka. Berria - Kirola

Talde txuri-urdineko jokalariak, halere, ez dira eskuak gurutzatuta geratu, eta sasoian egoteko **areto**-hockeyan aritu dira buru-belarri. Berria - Kirola

Batzuetan, argihauts zerrenda hura buruen gainean genuela, mutiko taldeen arteko borrokak hasten ziren, eta **areto** zaintzaileok geure linternarekin jaiki behar genuen, faroaren moduko dzartadak emanez eta isiltzeko aginduz. Joseba Sarrionandia

Bidezidorra amaitzean **areto** antzeko batera iritsi nintzen. Aitor Arana

Areto barruan bi pauso eman orduko emakumeak esmokindun gizonarengana itzuli omen ziren. Joxean Agirre

Salaketa egiten dutela zenbait komunikabidetan, eta **areto** aurean protesta egitera deitzen dutela. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hura nire aurkikundea izan zen (albo-**areto** berean, ezkerretara), ezein apaiz bavariarren laguntzarik gabekoa. Joxe Austin Arrieta

Sarrera **areto** txikian 14 maketa paratu dituzte. Berria - Kultura

Berehala hasi ziren Udalaren kontrako kritikak gutun sailetan-eta, udal **aretoen** erabilera hain badaezpadakoagatik, eta horrek zenbait erabaki ekarri zituen atzetik. Iñaki Iñurrieta

Mister Lewinek atzo gure itsasontziko makina-**aretoa** bisitatu zuela dio. Joxe Austin Arrieta

Bertze zapata betaurrekoekin batean egonen zen, gainsolairura igotzeko metalezko eskaileretan edo beheko makina-**aretoan**. Aingeru Epaltza

Peeter Sauter, udaletxeko ekitaldi **aretoan**, bere ume kasik jaio berriari biberoia ematen. Edorta Jimenez

Obus batek pareta zulatu, eta hauts hodei bat hedatu zen transmisio **aretoan**, den-dena lausotuz. Karlos Zabala

Te-**aretoa** jendez beterik zegoen, zaharrak eta langabetuak domino-jokoan ari ziren, tabakoa erretzen, lurrera tu egiten. Juan Kruz Igerabide

Eta musika **aretoak** mukuru beterik daude begiak itxirik, aurpegi zurbilak antena-jasotzaile bilakatzen saiatzen diren umiliatuez, irainduez. Monika Etxebarria

Te-**areto** ilunaren beste zoko batzuetatik solasaldi-zatiak iristen zitzaizkien. Lopez de Arana

Antigoaleko gauzen zale handia zen, salmenta-**areto** eta atxamarta azokena bezala. Joxan Elosegi

Batzar-**aretoa** presaka eta aztoratuta zeharkatu ondoren, Gernikako Haritz bizia agertu zitzaion begien aurrean, 1860an landatutakoa, eta harexen aurrean geratu zen pixka batean, hunkituta. Juan Luis Zabala

Bi zaldi ikusi genituen kalean zerraldo eta mazpilduta, bilkura-**areto** edo udaletxe izandakoaren ondotik iragan ginenean. Mirentxu Larrañaga

Erakuts iezazkidazue aurrenik kapera, kapitulu-**aretoa**, klaustroa, jantokia, sukaldea, logela eta ukuilua, eserleku ederrak, mahai bikainak eta bizileku zabalak. Askoren artean

Egun batean Sofi kontseilu-**aretora** eraman ziezaiotela eskatu zuen. Fernando Rey

Atzetik jarraika areto txiki hartatik kanpora atera ziren denak eta udalbatza **aretoa** hutsik geratu zen. Jon Maia

Lau egun eman genituen kongresu-**aretoan** ia egun osoz sarturik, Appalache mendien ondoko tabako eta kotoi zelaiak ikusi ahal izan gabe. Iñaki Zabaleta

Familia osoarentzako dibertsioa zen negoziobide berria: ekintza filmetarako zinemak, bideo-joko **aretoak**, teatro erakargarri baina ez serioegia, jantoki azkar eta merkeak, eta antzeko hainbat jostaketa-bide. Iñaki Zabaleta

Zutabe askok eta askok eutsitako kontseilu-**areto** handitik oihu handiak heldu ziren. Fernando Rey

-Ez dakit, ba -esan zuen Monak-, hitzaldi-**areto** bat alokatu beharko zenuke. Fernando Rey

Kontzertu-**areto** bateko aditu jendeari ari zitzaiola zirudien, eta ez ehiza-gela itxurako hartan bilduriko afaltiar urri eta erdi ezagunei. Anjel Lertxundi

Marmolezko zorua zuen saloi handi bat, irudimenean dantza **aretoa** iruditu zitzaiona, zeharkatu zuen ilunpean itsu-mustuan. Felipe Juaristi

Dantza-**areto** bakarti batean, Sheepshead Bay-ko neska italiar eder bat. Lopez de Arana

Jonathan-eta-Léa Clichy plazara abiatu ziren, bertatik bertara ia; miniareto-mordoari jaramonik egin gabe, erdeinuz igaro haien aurretik, eta eroso kokatu ziren benetako zinema-**areto** batean. Jon Muñoz

Zinema **areto** batean zaudenean bezala, ustez sekula aurrez ikusi ez duzun film bat ikusten. Harkaitz Cano

Zine-**areto** batean sartu zen, gauza bera egin nuen nik, eta, argiak itzali zituztenean, haren atzeko eserlekuan jarri nintzen. Anjel Lertxundi

Gero esan zigun zine **areto** bat zegoela hirian, eta hara joatea erabaki genuen. Juan Kruz Igerabide

Antzerkia egiten ere jartzen gintuen, eta, judua nintzela jakin baino hiruzpalau hilabete lehenago, Schiller-en Gaizkileak tragediako Franz Moor-ena egin nuen, arrakasta handiz, gymnasiumeko teatro-**aretoan**. Anjel Lertxundi

Lagunek billar-**aretoan** segituko zutela otu zitzaidan. Anjel Lertxundi

Texas&Colorado!-karaoke **areto** batera joan ginenean. Bernardo Atxaga

Saio-**aretoan** orrazten irakatsi zitzaion. Juan Garzia

Aulki batzuk; besterik ez: parrokia-**areto** txiro bat nola. Jon Muñoz

Ez zen harritu, beraz, egun batean Holohan jaunak, etorri, eta elkarteak Kontzertu **Areto** Zaharretan eman behar zituen lau kontzertu nagusietan alabak akonpainamendua jo zezala proposatu zionean. Irene Aldasoro

5 ***areto eliza*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***22*** *agerraldi)*

Areto eliza elizen eraikin arkitektonikoaren mota bat da non habearte guztiek garaiera bera duten. ETC-entziklopedia

Areto-eliza edo "hallenkirche" motakoa da, garaiera bereko hiru nabez osatua baitago. ETC-entziklopedia

San Bizente, hiru habearte dituena, XV. mendean hasi eta hurrengo mendean hallenkirchen edo euskal **areto-eliza** eredura egokitu zen. ETC-entziklopedia

Jatorrian **areto eliza** areto-motako estilo gotikoko eliza zen, baina gerora, XVI. mendean, egitura korapilatu egin zen, iparraldeko aldean hiru kapera erantsi zitzaizkionean. ETC-entziklopedia

Beste bi atalek altura bera dute, eta horrek elizari **areto-eliza** itxura edo kolumnategi itxura ematen dio, espazio aldetik bateratua. ETC-entziklopedia

6 *areto futbol*

Itsuen kategorian areto **futbola** ere jokatuko da aurten. Berria - Kirola

Futbolerako baino areto **futbolean** aritzeko aproposagoa dela argudiatzen dute bere kontra daudenek. Berria - Kirola

Areto **Futboleko** Espainiako Liga gaur hasiko da. Berria - Kirola

Areto **Futboleko** Europako Elkarteak. Berria - Kirola

7 *areto hipostilo* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Buleuterion eraikinaren tipologia hasiera batean megaron motakoa bazen ere, denboran zehar moldatu egin zen **areto hipostilo** laukizuzena edo karratuaren egitura ohikoa garatu arte, K.a. V. mendearen amaieran. ETC-entziklopedia

8 *areto hockey*

Talde txuri-urdineko jokalariak, halere, ez dira eskuak gurutzatuta geratu, eta sasoian egoteko **areto-hockeyan** aritu dira buru-belarri. Berria - Kirola

9 *areto literario* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Neckerren alaba zen eta bere amak antolatzen zuen **areto literarioan** filosofiarako zaletasuna piztu zitzaion. ETC-entziklopedia

Lehen 10 urteetan nahiko modu apalean eta egoitza propiorik gabe funtzionatu zuen elkarteak, baina orduan hasi ziren lehen **areto literarioak** sortzen eta profesionalentzako lehen formazio saio eta ikastaroak antolatzen. ETC-entziklopedia

Areto literarioak, irakurketa mintegiak eta irakurzaletasuna sustatzeko ikastaroak antolatuz hasi zuen bidea elkarteak. ETC-prentsa

Iragan den azaroaren 1ean ireki zuten estreinakoz Arrasateko Bibliotekan Itsaspeko bihotzak, Galtzagorri elkartearen **areto literario** berria. ETC-prentsa

10 *areto nagusi*

Areto nagusiaren inguruko hormek harlanduzko hiruna erreskada eta zedrozko ohol-erreskada bana zituzten, Jaunaren etxe barruko aretoaren eta atalondoaren tankerara. Elizen arteko biblia

Orduan, megaroia deituriko **areto nagusian** dauden arma guztiak hartu eta goiko solairura igo behar dituk. Juan Kruz Igerabide

Horra **areto nagusian** giltzapetu eruditoa. Jon Muñoz

-Areto nagusiko erretratuak? Jauna - dio, irri dardarati batekin -, ez dakit deus margolanez. Monika Etxebarria

Antzera zebiltzan goian, Kultur Etxeko **areto nagusian**. Berria - Euskal Herria

Arratsalde euritsua izaki, trafiko arazoak medio-edo ttanttaka hasi ziren iristen gonbidatuak Kultur Parkeko **areto nagusiaren** atarira, aterkiak eskutan gehien gehienak. Berria - Harian

Gizonak **areto nagusian**, eta emakumeak eta haurrak, berriz, beste gela txikiago batean. Berria - Harian

Martin Ugalde Foroak gonbidatuta, Enpresaren erronkak ziklo teknologikoaren ikuspegitik gaiaren inguruan ariko da 19: 00etatik aurrera, parkeko **areto nagusian**. Berria - Ekonomia

Kapela gorri-beltzak patrikan ezkutatuta sartu ginen **areto nagusian**. Inazio Mujika Iraola

Jendez gainezka dago **areto nagusia**, eta irakasle batzuk ere inguratu dira. Pako Aristi

Hilaren 11n Habanako Unibertsitateko **Areto Nagusian** hitzaldia du Agirrek. Edorta Jimenez

Bero egiten zuen han; indarge legez jesarrita zeuden hiruzpalau gizonei agur egin diet eta bainuetxeko **areto nagusian** sartu naiz. Jon Arretxe

Hiru gela daukat hemen (bi nik erabili gabeak); gehi sukaldea, bainugela; baita, jakina, ederrena, lakura begirako **areto nagusia**; eta niretzat lan-bulego bihurtua. Txillardegi

Zaharraren ondoan begiztatu nuenean, **areto nagusitik** ateratzeko aukeratuko zuten ateko bidean aurrea hartu, eta haren ondoan itxaron nien berriro ere. Ramon Saizarbitoria

Wanda Ford mutilarekin hizketan ari zen neskatxaren bila itzuli zen, **areto nagusira**. Gotzon Garate

11 *areto-zapata* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Areto-zapata oinetako lokarrigabe mota da, molde baxukoa. Normalean emakumeek erabiltzen dute baina gizonezkoek ere zenbait gertakizun formaletan (operan adibidez) erabiltzen dute. ETC-entziklopedia

12 *aretoko dantza*

Istorioa garai eta herrialde ezberdinetan garatzen da eta horren arabera bals ingelesak, salsak nahiz **aretoko dantzak** antzeztuko ditugu», azaldu du Uriartek. Berria - Kultura

Aretoko dantza, jaialdi fin eta mugatuetarako grina biziagoa zuen jende hark. Askoren artean

13 *aretoko hockey* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Talde honekin eskuratu dituen tituluen artean, Liga Txapelketa bat, Erreginaren Kopa eta Europako Txapelketa dira aipagarriak. **Aretoko hockeyan**, berriz, bi Liga Txapelketa irabazi ditu. ETC-entziklopedia

14 *arte areto*

Altxerri, Bilbik, Colon XVI.a, Vanguardia, Dieciseis, Trayecto, Windsor Kulturgintza eta DV **arte aretoak** izango dira Euskal Herriko ordezkariak. Berria - Kultura

Melkwegeko kafetegian, jatetxean, antzokian, zinema aretoan, **arte aretoan**, multimedia aretoan eta kontzertuetarako bi areto handietan, Euskal Herriaren Eguna ospatuko dute. Berria - Kultura

Auditorioak ohar bat plazaratu zuen atzo, "eurekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko» gaurtik astearte **arte aretoa** itxita egonen dela adierazteko. Berria - Euskal Herria

15 *auzi areto* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Puma ere ekarri zuen **auzi-aretora**. ETC-literatura, saiakera

Auziperatuen abokatua irudikatu nuen **auzi-aretoan** niri galdezka. ETC-literatura, saiakera

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren (TSJPV) Administrazioarekiko **Auzi-Aretoan** ezarri du errekurtsoa sindikatuak. ETC-prentsa

Auzi aretoan geratu ziren, ordea, giltzapetuta ez dauden bi lagun bakarrak, hauek direla Belen Lopez Calderon eta Antonio Lago Iglesias. ETC-prentsa

Batzuetan, esperpentotik gertu zegoen **auzi aretoan** ikusi genuena, baina ez zien axola; helburua garbia zen, eta batere gorritu gabe eraman zuten bukaeraraino. ETC-prentsa

Auzi-aretoak bezain hotza den eremu batean jarri dituzte bi pertsonaiak antzezlanean, epailea espedientez betetako mahaiaren atzean eta akusatua beste muturrean, aulki soil batean eserita. ETC-prentsa

Epaiketak irauten duen bitartean, **auzi aretoan** sartzen ez diren kazetarientzako lan lekua paratu dute Goreneko arduradunek. ETC-prentsa

Auzi-aretoetan egiten direnak, jakinarazpena nori egin eta pertsona horri oso-osorik irakurrita gauzatuko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Agente judizialak edo salako ofizialak egingo ditu epaitegiko edo auzitegiko **auzi-aretoetatik** kanpo burutu beharreko jakinarazpenak, zitazioak eta epatzeak, hurrenez hurren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Abokatuak **auzi-aretoko** aulki arruntetan jesartzen dira. ETC-entziklopedia

16 *gradu areto* unibertsitateetan-eta, gradua hartzen den aretoa.

Gradu aretora sartutakoan. Berria - Euskal Herria

Horixe bera egiaztatu zuen Miriamek **Gradu** Aretoan botoak hartzeko ipinitako mahaian. Berria - Euskal Herria

EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen Filologia, Geografia eta Historia Fakultateko **Gradu-** Aretoan. Berria - Euskal Herria

17 *joko areto*

Irteteko esan zidan, eta gizonezkoak edozein **joko-aretotan** bezala jokoan ari ziren areto batera sarrarazi ninduen. **Joko-aretoa** gurutzatu ondoren atzeko ate ezkutua ireki

eta edariaren eta emakume lizunen besoetan murgiltzen ziren. Josu Zabaleta

Zinema eta **joko aretoen** gunea ixtea erabaki zuten. Berria - Euskal Herria

Ekintza filmetarako zinemak, bideo- **joko aretoak,** teatro erakargarri baina ez serioegia, jantoki azkar eta merkeak, eta antzeko hainbat jostaketa-bide. Iñaki Zabaleta

18 *kontzertu areto*

Bartzelonan, herenegun gauean, ez zen ultra-eskuindarren talderik Fermin Muguruzaren **kontzertu aretoaren** atarian, ezta emanaldia bertan behera geratzeko arriskurik ere. Berria - Kultura

Nahiz eta ospakizunak kalean hasi ziren, **kontzertu aretoetan** egin diezaiokegu musikari mesederik handiena. Berria - Kultura

Ez zen harritu, beraz, egun batean Holohan jaunak, etorri, eta elkarteak **Kontzertu Areto** Zaharretan eman behar zituen lau kontzertu nagusietan alabak akonpainamendua jo zezala proposatu zionean. Irene Aldasoro

Kontzertu aretoa da. Edorta Jimenez

Karrera eta **kontzertu-aretoak** utzi egin behar izan zitian, eta dohain handirik gabeko haurrei, probintziako hiri txiki honetan, musika irakasten eta musikazale hobexeagoren baten piezak zuzendu eta kopiatzetik ateratzen zituen osagai xumeez baliatzen hasi. Xabier Olarra

Lan egiten duen **kontzertu aretotik** irtengo da orain. Eider Rodriguez

Duela aste pare bat, Bowery Ballroom **kontzertu aretoan** izan nintzen Morphine rock taldea ikusten (biziki gustuko dut talde hau, besteak beste, bere konposizio bitxi eta ausartagatik. Harkaitz Cano

Kontzertu-areto bateko aditu jendeari ari zitzaiola zirudien, eta ez ehiza-gela itxurako hartan bilduriko afaltiar urri eta erdi ezagunei. Anjel Lertxundi

19 *narko-areto* *(orobat* ***narkoareto****)*

Gipuzkoan drogak hartzeko eguneko zentro bat eraikitzea, Bilboko Zamakola auzoko **narko-aretoak** izan duen harrera ona ikusita. Berria - Euskal Herria

Metadona **narkoaretoan** har zezaketela esan zieten. Berria - Euskal Herria

20 *ospakizun areto*

Ibarretxeri gutuna eman ondoren, **ospakizun aretotik** irten ziren, isiltasuna nagusi zela. Berria - Euskal Herria

21 *udalbatza areto*

Haren sendiak izan ziren ohorezko gonbidatu Getxoko **udalbatza aretoan** , seme-alabak buru zirela, eta haiek jaso zuten ohorezko domina. Berria - Euskal Herria

Atzetik jarraika areto txiki hartatik kanpora atera ziren denak eta **udalbatza aretoa** hutsik geratu zen. Jon Maia

22 *zine areto* zinema aretoa.

Zine-aretoa ia hutsik zegoen. Joseba Urteaga

Geratzen zen **zine-areto** bakarra masaje etxe bilakatuko dute laster. Patxi Iturritegi

Kafetegi edo **zine areto** batera sartzeko ideia hutsak gaixotu egiten ninduen. Alberto Ladron Arana

Zine-aretoan elkartzen ginen. Anjel Lertxundi

Gero esan zigun **zine areto** bat zegoela hirian, eta hara joatea erabaki genuen. Juan Kruz Igerabide

Alemaniako Historiaren Museoko **Zine aretoan** . Berria - Kultura

Hiru seikotetan banatuak izanik hauetarik lehenak jokatu du beraz igandean Leitza-ko **zine aretoan** finalerdia. Herria

23 *zinema areto*

Zinema aretoa , jaietan dantzarako erabiltzen zena, herri sarreran zegoen. Josu Zabaleta

Kalearen bueltan, **zinema aretoaren** ate pipiak janaren aurrean. Josu Zabaleta

Gobernadoreak debekatu zion aldizkari bat abiatu zuen, abesbatza zuzendu zuen, **zinema aretoa** zabaldu zuen. Koldo Izagirre

Principe **zinema aretoetara** sartzeko eta sarrera erosteko ilara luzeak daude. Berria - Harian

Gazte baten gelako hormatik zintzilik jarrita dagoen "posterrak", **zinema-aretoan** proiektatzen den irudiak, edota telebistako irudiak berak ere, denek dute zeinek bere marko-objektua. Josu Zabaleta

Egun, film arrakastatsuen katalanerazko 12 eta 14 kopia inguru erakusten dira Herrialde Katalanetako **zinema aretoetan** . Berria - Mundua

Debekatua dute antzokietan, **zinema aretoetan** , eta beste aisia leku publikoetan sartzea. Josu Zabaleta

Zinema aretotik atera eta ikusi duguna imitatzen saiatzen gara. Luis Elberdin

Zigoitiako Gorbeia merkataritza guneko **zinema** eta joko **aretoak** itxiarazi zituen Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

areto askotan (4); **areto barruan** (6); **areto bateko** (5); **areto berean** (5); **areto berezia** (3); **areto berriak** (3); **areto futbola gsi** (10); **areto futbola mra** (12); **areto futbolean** (4); **areto futboleko** (7); **areto guztiak** (3); **areto guztietan** (5); **areto handi hartan** (3); **areto handia** (7); **areto handian** (8); **areto hartan** (7); **areto honetan** (5); **areto horrek** (3); **areto horretan** (7); **areto hura** (3); **areto ilunean** (3); **areto luze** (3); **areto nagusia** (13); **areto nagusiak** (5); **areto nagusian izango** (3); **areto nagusiaren** (6); **areto nagusietan** (3); **areto nagusiko** (5); **areto nagusira** (8); **areto osoa** (3); **areto osoan** (6); **areto txiki bat** (3); **areto txiki batean** (4); **areto txikian** (3); **areto zabal** (4)

beste areto batean (7); **beste areto batera** (3); **bi areto** (3); **campoko areto berezian** (3); **da areto** (5); **dantza areto** (5); **de campoko areto** (4); **du areto** (3); **erakusketa areto** (6); **etxeko areto nagusian** (5); **hainbat areto** (3); **hiru areto** (5); **hoteleko areto** (3); **jauregiko areto** (3); **ko zanbra areto** (3); **kontzertu areto** (7); **kultur etxeko areto** (3); **kursaaleko areto** (6); **udal areto** (3); **zegoen areto** (5); **zen areto** (8); **zine areto** (5); **zinema areto bat** (4); **zinema areto batean** (4); **zinema areto komertzialetan** (3); **ziren areto** (4); **zuen areto** (4)

aretoa bete egin (6); **aretoa beteta** (7); **aretoa da** (4); **aretoa ere** (7); **aretoa gainezka** (4); **aretoa hustu** (5); **aretoa hutsik** (3); **aretoa ia hutsik** (3); **aretoa jendez** (6); **aretoa lepo bete** (3); **aretoa lepo zegoen** (3); **aretoa mukuru** (3); **aretoa utzi** (5); **batzar aretoa** (10); **bilboko azkena aretoa** (4); **bilborock aretoa** (18); **dantza aretoa** (5); **dute aretoa** (4); **egiteko aretoa** (3); **erakusketa aretoa** (5); **ganbera aretoa** (5); **hezkuntza esparruko aretoa** (3); **kontzertu aretoa** (3); **kubo aretoa** (3); **kursaal aretoa** (4); **la fundicion aretoa** (4); **makina aretoa** (3); **prentsa aretoa** (5); **rekalde aretoa** (6); **san agustin aretoa** (3); **serantes aretoa** (3); **zegoen aretoa** (3); **zen aretoa** (4); **zinema aretoa** (11); **zornotza aretoa** (10); **zuen aretoa** (5); **zuten aretoa** (4)

aretoak eta logela (4); **aretoak ez** (3); **caracol aretoak** (4); **erakusketa aretoak** (5); **fundicion aretoak** (4); **joko aretoak** (5); **kultur aretoak** (5); **nazionaleko zigor aretoak** (3); **rekalde aretoak** (3); **zinema aretoak** (8); **zituen aretoak** (3)

aretoan agertu (4); **aretoan ariko da** (4); **aretoan ariko dira** (3); **aretoan aurkeztuko** (4); **aretoan barrena** (4); **aretoan bertan** (8); **aretoan bi** (4); **aretoan dauden** (4); **aretoan egin zuten** (3); **aretoan egindako** (4); **aretoan egingo den** (7); **aretoan egon** (3); **aretoan eman behar** (4); **aretoan emandako** (3); **aretoan emango duen** (3); **aretoan erredakzioa** (3); **aretoan eskaini zuen** (3); **aretoan eskainiko** (5); **aretoan ez** (3); **aretoan harrera** (3); **aretoan ikus** (5); **aretoan ikusi ahalko** (4); **aretoan iraganen** (4); **aretoan izan zen** (5); **aretoan izango da** (14); **aretoan izango dira** (4); **aretoan jarri** (6); **aretoan jokatuko** (3); **aretoan joko du** (10); **aretoan joko dute** (3); **aretoan juan** (3); **aretoan maiatzaren** (3); **aretoan paratu** (5); **aretoan sartzea** (3); **aretoan zabaldu** (4); **aretoan zegoen** (4); **aretoan zehar** (4); **aretoan zeuden** (5)

armen aretoan (3); **arriola kultur aretoan** (3); **artsaia aretoan** (5); **atzo prentsa aretoan** (5); **azkena aretoan joko** (4); **banako aretoan** (3); **bartzelonako apolo aretoan** (5); **batzar aretoan** (11); **batzar nagusietako aretoan** (5); **bellevue aretoan** (20); **bergarako jam aretoan** (7); **bilboko azkena aretoan** (8); **bilboko bilborock aretoan** (5); **bilboko rekalde aretoan** (5); **bilera aretoan** (3); **bilkura aretoan** (3); **billar aretoan** (5); **caracol aretoan** (3); **carre aretoan** (4); **center aretoan** (3); **de gas aretoan** (5); **dira aretoan** (4); **donostiako gazteszena aretoan** (14); **donostiako kursaal aretoan** (8); **du midi aretoan** (20); **duen aretoan** (4); **eki goi aretoan** (5); **elkartegiko aretoan** (3); **elorrioko arriola aretoan** (5); **erakusketa aretoan** (11); **faustin bentaberri aretoan** (3); **gasteizko azkena aretoan** (11); **gasteizko helldorado aretoan** (4); **gazteszena aretoan egingo** (3); **gradu aretoan** (5); **harrera aretoan** (4); **hernaniko play aretoan** (3); **hitzaldi aretoan** (4); **ideales zinema aretoan** (3); **indautxuko carmen aretoan** (3); **ipar aretoan** (4); **kaleko aretoan** (3); **kultura aretoan** (5); **kulturuneko ganbara aretoan** (4); **kursaaleko ganbera aretoan** (15); **kursaaleko kubo aretoan** (6); **kutxa aretoan** (9); **kutxa fundazioaren aretoan** (3); **la fundicion aretoan** (9); **larrea aretoan** (3); **legebiltzarreko prentsa aretoan** (3); **leidor aretoan** (3); **lesakako zanbra aretoan** (5); **lezamako prentsa aretoan** (3); **liburutegiko ekitaldi aretoan** (4); **pedroko udal aretoan** (7); **prentsa aretoan mintzatu** (3); **rock star aretoan** (5); **san agustin aretoan** (3); **sarrerako aretoan** (3); **serantes aretoan** (4); **totem aretoan** (3); **udaletxeko pleno aretoan** (4); **zegoen aretoan** (7); **zen aretoan** (4); **zen prentsa aretoan** (3); **zine aretoan** (3); **ziren aretoan** (6); **zornotza aretoan** (9); **zubietako prentsa aretoan** (5); **zuen aretoan** (4)

aretoaren atarian (4); **aretoaren aurrean** (7); **aretoaren aurretik igarotzen** (3); **aretoaren beste** (6); **aretoaren erdian** (6); **erakusketa aretoaren** (4); **kapitulu aretoaren** (3); **zen aretoaren** (4)

udal aretoen (3); **zinema aretoen** (7)

aretoetako arduradunek (3); **aretoetako batean** (3); **zinema aretoetako** (5)

aretoetan egingo (4); **erakusketa aretoetan** (5); **euskal herriko aretoetan** (3); **herriko zinema aretoetan** (4)

aretoetara iritsiko da (3); **zinema aretoetara** (11)

golem zinema aretoetatik (3)

antzerki aretoko (3); **aretoko arduradunek** (3); **aretoko argiak** (5); **aretoko atarian** (4); **aretoko atea** (3); **aretoko ateak** (3); **aretoko epaimahaiak** (3); **aretoko hotsa** (3); **aretoko jabeak** (3); **aretoko presidenteak** (3); **aretoko sarreran** (5); **kubo aretoko** (5); **rekalde aretoko** (7); **zen aretoko** (3); **zigor aretoko lehen** (3); **zinema aretoko** (6)

aretora eraman (6); **aretora igo** (3); **aretora iritsi** (4); **aretora itzuli** (4); **aretora joan zen** (3); **aretora sartu ziren** (4); **aretora sartzean** (6); **aretora sartzeko** (6); **aretora sartzen** (6); **leihoekiko aretora** (3); **prentsa aretora** (4); **sartu ziren aretora** (3); **zen aretora** (4); **zinema aretora** (3)

bi aretotan (3); **hainbat aretotan** (6)

aretotik alde egin (3); **aretotik atera zen** (4); **aretotik irten zen** (6); **aretotik irten ziren** (5); **aretotik irtetean** (4); **atera zen aretotik** (3); **batzar aretotik** (6); **kontseilu aretotik** (4); **zinema aretotik** (6)

---

aretoaurre *iz* areto baten aurrealdea.

Beste hiru kartelak zinematokian bertan ipintzen ziren, bi salmenta-leihatilaren alboetara eta hirugarrena hallean -Luigik "anbigu" hitza erabiltzen zuen beti **aretoaurre** moduko espazio hura aipatzean. Josu Landa

---

aretotxo *iz* areto txikia.

Kafea hartzeko, aldameneko **aretotxora** pasatzea proposatu digu "maître"ak. Txillardegi

---

aretozain *iz* areto bateko zaintza lana egiten duen pertsona.

Horietako bat Gaiarre Antzokiko **aretozaina** zen, ondo ezagutzen dut. Berria - Harian

Joan den astean **aretozainentzat** soilik egin nuen antzezpena, zer iruditzen zaizu? Lopez de Arana

Eta, halako batean, Savoy zineman topatu nuen, **aretozain** lanetan, herritik itzulita. Karlos Linazasoro

---

aretu, are(tu), aretzen *(orobat **areatu**)* du *ad* lurra harrotu.

Badaezpadan, gainera, lurra arindu eta **aretzerako** ere, hazitarako apartatutakoak zaindu toki egokian, ur bedeinkatu preziaturen bat inguratu non edo handik... kontuak atera, beti ere, zeru eta lurretakoekin sozio! Pello Zabala

Ereiteko garaian, nekazariak beti goldaketan eta lurra urratzen eta **areatzen** jardun ohi ote du? Elizen arteko biblia

---

aretx ik **haritz**.

---

aretxabaletar *iz* Aretxabaletakoa, Aretxabaletari dagokiona.

Autodeterminazioaren aldeko Biltzarretan (ABK) eta Desobedientzialariak taldean jarduna da Xabier Sarasua, 34 urteko **aretxabaletarra**. Berria - Euskal Herria

Zigorrek 58 urte ditu **Aretxabaletarra** da sortzez eta garai honetan Biarritzen bizi da. Herria

Ejidok fitxatu du **aretxabaletarra**, eta aldi berean Realak bi urtez luzatu dio kontratua. Berria - Kirola

Iñurrategi **aretxabaletarrak** hamabosgarren zortzimilakoa zuen hau, lehena haatik negu baldintzetan igotakoa. Herria

---

aretxe ik **aratxe**.

---

aretze ik **aratxe**.

---

argal *(ETCn **3.887** agerraldi)* **1** *iz izond* pertsonez eta abereez mintzatuz, mami gutxikoa, mehea dena; ahula, indar gutxikoa.

Beltz-beltza zuen ilea, **argala** zen, orban horixkak zituen tatariar masail zorrotzetan. Jose Morales

Brazell **argala** zen, Skully lodia. Koro Navarro

Argala baitzen, hezurtsua, eta gogoan dut izuturik ematen zutela beti haren begiek. Bego Montorio

Argala eta hezurtsua zen, eta oso dotore jantzita zegoen, grisez goitik behera, zetazko alkandora eta gorbatarekin. Bernardo Atxaga

Pertsona lodiak **argalak** baino zoriontsuagoak direla. Unai Elorriaga

Pertsona **argalek** edo behar baino kaloria gutxiago jaten dituztenek bizi-itxaropen luzeagoa izaten dutela egiaztatu du Sevillako Unibertsitateko (Espainia) biokimikari talde batek. Berria - Gaiak

Pepponek kamioia gelditu eta gizontxoari begiratu zion: adin oneko jaun bat zen, **argala**, planta finekoa. Koldo Biguri

Kain gizena zuan eta Abel **argala**. Karlos Zabala

Ez naiz harritzen -eten zuen La Sarriettek-; gizon **argal** horiek gizon gordinak dira. Karlos Zabala

Gauza iraingarri samarrak esan zituzten gizon **argalei** buruz: besteak beste, ez zirela gizakiak, zotzaren antzeko zerbait baizik. Jose Morales

Da Rua eroa gizon garaia, **argala**, begi-beltza zen. Felipe Juaristi

-Gizon **argalak** gizon zailduak dira -esan zuen La Sarriettek uste osoan. Karlos Zabala

Nire senargaiak ez ditu gogoko neska **argalak**. Lopez de Arana

Han gelditu zen, eserita, bizkarra kakoturik, mutil **argal** hari begira. Karlos Zabala

Hena-koloreko ilea zuen emakume aurpegi **argal** batek ireki zuen atea. Lopez de Arana

Luze begiratzen diet haien aurpegi **argalei**, haien begi tristeei. Felipe Juaristi

Osaba **argalaren** familian denak ziren **argalak**, **argala** aita eta **argala** semea, bakarrik ama zen gizen samarra, ezkutuan jaten baitzuen janari guztia. Pello Lizarralde

Ume **argalek** eta atso zurbilek harriturik ikusten zaituzte pasatzen. Koldo Izagirre

Beste lehengusu **argala** hantustearen esklabu leiala zen. Pello Lizarralde

Enkantegile konkordunak, beroturik, haizea astintzen zuen bere beso **argalekin**, masailezurrak aurreratzen. Karlos Zabala

Eritegian herioari zain zegoen lasai asko, **argal-argal**, larrua hezurretan itsatsia, lepo aldean eta, zetaka beztakak antzematen zitzaizkiola. Gotzon Garate

Aurpegi **argala** erakusten du erretratuko Charlotte Cordayk, aurpegi lasaia, aurpegi barea, aurpegi ibaia. Felipe Juaristi

Argala zen Angela Galli, luzanga, begi eta ile argikoa, mototsean bildua ia beti. Xabier Montoia

Jabea, Cesare edo Riccardo izenekoa, gizon gaztea zen: hogeita hamar eta gutxikoa, luzea, **argala**, aurpegi triste eta azal zurbilekoa, beltzarana, artista erromantiko itxurakoa. Ramon Saizarbitoria

Beste bien antzeko beste gizon bat, bera baino nagusiagoa ziurrenik, bizarduna beharbada, altua eta **argala** edo baxua eta lodia, auskalo. Sonia Gonzalez

Mutil eder bat, garaia, **argala**. Lopez de Arana

Txitxikov bezala, gobernadorea ez zen ez lodia eta ez **argala**. Jose Morales

Oso **argala** zen, hilotz baten argaltasunekoa. Josu Zabaleta

Txabusina zuriko patologo ezin **argalago** batek baieztatu zion. Fernando Morillo

Ume **argalek** eta atso zurbilek harriturik ikusten zaituzte pasatzen. Koldo Izagirre

Britxkaren barruan jaun bat zegoen, ez ederra, baina eite itsusikoa ere ez, ez lodiegia, ez **argalegia**; ezin esan zaharra zenik, ezta gazteegia zenik ere. Jose Morales

2 (beste izenondo edo kideko batzuekin)

Mutil eder bat, garaia, **argala**. Mutil zurbil **argal** horrek bere lehenbiziko senarra zekarkion gogora. Lopez de Arana

Gwilym zegoen han goian eserita, Gwilym begi-bakar, begi-hil, maltzur, **argala**, armak kargatzen Urkabearen Etxaldean. Koro Navarro

Berrogei urteko gizon **argal** ederra zen, giharretsua, burusoila eta geratzen zitzaion ilea motx-motx eginda zeramana. Aitor Arana

Imajinatzen nuen haizeak ekarritako esperantza-doinuak kantatzen arituko zela Mahmad Xekho-rekin, saza jotzen zuen kantari handi **argal** harekin. Juan Kruz Igerabide

Gizon **argal** luzea zen bera, zain eta gihar. Felipe Juaristi

Haren ondoan zegoen gizon luze, **argal**, ilebeltzak besoaz inguratu zuen. Iñaki Mendiguren

Eberen gorputz **argal** epel leuna nire alboan etzan da. Sonia Gonzalez

Halako batean emakume **argal** eta lirain bat heldu zait ondora. Pako Aristi

Gero, ile beltzeko judu txiki eta **argal** baten txanda izan zen. Lopez de Arana

Neska, berriz, txikia zen, maltzurra eta **argala**, eta mutur bitxia agertzen zuen, bere tximia kizkurren sastraka beltzaren azpian. Karlos Zabala

Gizon luze eta **argal** batek, oso serio, buruan txapel gorri batekin, hizkuntza arrotz batean hitz egiten zuen, eta izutu egiten ninduen. Juan Kruz Igerabide

Barratik begiratzen dion gizonaren gorputz luze **argalean** erreparatu du. Sonia Gonzalez

Esaneko ez den erlijioso kexati eta gogo gutxikoa zaldi **argal**, gaixo eta gaizki ohitutako baten gainean dago eseria. Askoren artean

Herriko monumentu nazionala maistra zaharra zen, andretxo **argal** txiki bat. Koldo Biguri

Diskoak ipintzen ari zen mutil **argal** garai ile luzeak musika aukeratzen jarraitu zuen. Sonia Gonzalez

Il mestiere di vivere (Bizitza lanbide) irakurri duenari Paveseren isla irudituko zaio arkupe batetik bestera pasatu den kapeladun gizon garai **argal** hori. Anjel Lertxundi

Aita, don Pedro Hurtado, gizon garai, **argal**, dotore bat zen, gaztaroan apaina eta olgetazalea izana. Josu Zabaleta

Emilio Mina Irasasi, futbolean hain ondo egiten zuen mutil **argal**, errubio eta isila, laugarrena errepikatzen ari zena. Joseba Sarrionandia

Pianojolea zahar **argal** apaindu bat zen, aurpegi estu luzea zuena. Josu Zabaleta

Albornoza ireki eta bere gorputz **argal** eta biluzia bistaratu zen. Unai Iturriaga

Robert Oppenheimer gizon luze eta **argala** zen. Fernando Morillo

Fionn ez zen larritu eta hirugarren gerlaria, gizon ilehori, **argal** eta zaintsua, neurtu zuen. Joanes Urkixo

Pince andrea, liburuzaina, emakume **argal** eta erretxin bat zen, eta gutxi jandako putrea ematen zuen. Iñaki Mendiguren

Barazki-saltzaileak magrebtarrak ziren gehienak, itxuraz ere antzematen zitzaien: begi beltz zorrotzak, aurpegi **argal** eta beltzarana. Felipe Juaristi

Azken geralekua behar duenera iritsi da autobusa eta azkar jaitsi da andre **argal** eta luze bat, bidaikide bakarra Soin **argal** eta haurgintzak maiztua estaliz. Urtzi Urrutikoeetxea

Pertsona gizen eta haragitsuen gorputzak, hezurrak txikiak badira, eta emakumeenak oro har, arinagoak izaten dira pertsona **argal** eta hezur-luzeenak, eta gizonenak baino. Koro Navarro

Hiltzera zihoanean, apaiz **argal** eta txuri-txuri harentzat izan zuen bere azken oroitzapena. Pako Aristi

Beti izan naiz **argal** samarra eta, hala ere, beti argalago egon nahi izan dut. Patxi Zubizarreta

Pausatzen dut edontzia hutsik; nire hatz zuri **argal** hauek zamauaren lore bordatuak laztantzen dituzte. Eskarne Mujika

Enperadore **argalak** eta gizenak. Berria - Kultura

· Gizon mehea, urduria, aurpegi-**argala**, sudur-zorrotza, bizarrean ile-motots bat, ile zuri batzuekin, eta ahoa hortzik gabe, gizon ahulek ohi duten bezala. Josu Zabaleta

Anjak, hona ekarri nauen Anja bihozberak, trenaren belarri egin duen **argal**-beltzaranak, bere belarriei egiten die orain laztan; kaskoak jarrita, musika entzuten dago. Edorta Jimenez

3 (pertsonez bestelakoekin)

Zirkuaren inguruan, oholez egindako banku baten oinetan lotuta, hamar-hamabi zakur zeuden, **argalak** eta hazteritsuak. Koro Navarro

Nik neuk erabakiko dut ardi gizenaren eta **argalaren** arteko auzia. Elizen arteko biblia

Umea bezala iratzarriak genituen bi katu **argal** eta hori zebiltzan gure inguruan mehatxu aire batean. Koldo Izagirre

Arrain **argal**, grisaxka, jan bila hondoko lohietatik sabela herrestan dabiltzanetakoa. Alberto Ladron Arana

Gizasemeak, emakumeak, haurrak, zaharrak, animalien larruez jantzirik, aurpegia bikez igurtzitako maskuriekin estalirik, artalde **argal** batzuk zaintzen zituzten. Karlos Zabala

Gauzekin gure zentzumen **argal**, erdipurdiko, gaixoen bidez baizik ez dugu harremana. Josu Zabaleta

Baina ez zen batere serioa etxeetan karpeta bakar batekin agertzea, karpeta **argal** batekin. Unai Elorriaga

Edertasun **argal** eta zurbila. Sonia Gonzalez

Noizbait ere konturatuko ginen zerk eragiten zuen ibaiaren gizen-**argal** itxuraldaketa hura. Pedro Alberdi

Uilek lo jarraitzen zuen zutik, baina amonak zakiltxo bigun eta **argala** hara eta hona ibiltzen zion, hatz txiki bat bezala, harik eta esnatu eta pixa erreka bero horia egiten zuen arte. Juan Kruz Igerabide

Poztasunezko aurpegi hartan banan-banan marraztu ziren sudur handi bat eta begi sentiberak, baita bibote **argala** ere. Javi Cillero

Bi beharginei begira Patxi zaharra: hezur-giltza lokak, antiojoen atzean malkozko begiak, galtza **argalak**, zapatillak. Pablo Sastre

4 (izen gisa)

Behin ere ez dinat **argal** onik topatu. Karlos Zabala

Etxean gimnasia egin eta sasoian egoteko tresna miresgarriak, **argal** itxura emateko faja miragarriak, sukaldean txikitu beharreko guztia di-da txikitzen zuten aizto harrigarriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Osasun betean zeuden; ederrak, mardulak, distiratsuak; eta haien begiradan, berriz, harridura ez ezik, ezinegon zehaztugabe bat ere ageri zen, jende lodiari **argalen** aurrean gertatu ohi zaion bezala. Karlos Zabala

Ez dute gogoko azaleko distira; haien frakak ez dira **argalenak** bezain dotoreak, baina oparo horniturik edukitzen dituzte diru-kutxak. Jose Morales

5 (adizlagun gisa)

Barauaren barauz, zangoak koloka ditut, gorputza **argal** eta ihar. Elizen arteko biblia

Mozketak hainbeste beldurtzen ditu ardiak, zuri eta **argal** geratzen dira, eta libre geratu bezain laster berriro hasten dira belarra hozkatzen. Julen Gabiria

Hain **argal** ikusita, haren erruki zen, inondik ere. Karlos Zabala

Hiltzailea deitu zion, esan zuen ez zela harritzekoa hain **argal** egotea, doilorkeriak ez baitzion gizentzen uzten. Karlos Zabala

Ziria sartzen hasita, berriz, ezin amaitu: auzokoaren zaldia **argal** dagoela-eta, esaterako, zaldi hori ikusezina bihurtuko da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Argal dagoena osasuntsu dago. Edorta Agirre

Argal zegoen, baina itxura osasuntsua zuen, sendoa. Iban Zaldua

Etorri nintzenean hori bezain **argal** nengoen, edo are flakoago. Joxemari Iturralde

Oso **argal** zaude. Sonia Gonzalez

Lehen bezain **argal** jarraitzen zuen oraindik. Fernando Morillo

Beti bezain **argal** jarraitzen du. Fernando Morillo

Etxekoandrea sartu zen gelan, gazte, sudur-zapal, zurbil, **argal**, moztaka, gustu onez jantzirik, Petersburgeko damak bezala. Jose Morales

Ohi baino **argalago** dago Eugi; baina ahultasunik ez duela azpimarratu zuen atzo, larunbateko partidarako pilotak hautatu ondoren. Berria - Kirola

Lehen baino **argalago** zegoen, baina ahotsa lehengoa zeukan, beti bezain ederra. Alchonon gero eta **argalago** zegoen, baina beti bezain arin zeuzkan oinak. Juan Kruz Igerabide

6 *argal-argal*

Berehala, estatuaren konkorra zabaldu zen, pertsona **argal-argal** bat bertatik igarotzeko adina. Iñaki Mendiguren

Argal-argala, ile beltz luzea, eta kamiseta tirantedun estua jantzita, ilearekin kontraste ederra egiten zion kamiseta zuria. Sonia Gonzalez

Aitonak eraman zuen umetan santu hura ikustera, eta han Leon Marty izena zuen apaiz bat ezagutu zuen, **argal-argala** eta txuri-txuria. Pako Aristi

Gero, ordea, beste zazpi behi irten ziren Nilotik, itxura txarrekoak eta **argal-argalak**, hezur hutsetan zirenak. Elizen arteko biblia

Nire bular **argal-argalaren** alde bietan, bi beso ergel-ergel ziren zintzilikatzen. Jesus Mari Mendizabal

Aulki gurpildunean Leireren amona zegoen, **argal-argal**, guztiz zurbil eta ilea zuri-zuria zuela, atzera orraztuta. Aitor Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argal argal (4); **argal argal** (4); **argal argala** (5); **argal argalak** (5); **argal bat zen** (6); **argal batek** (4); **argal baten** (5); **argal haren** (4); **argal hark** (3); **argal hori** (3); **argal jarraitzen** (3); **argal samarra** (5); **argal zegoen** (6)

aurpegi argal (3); **bezain argal** (10); **gazte argal** (4); **gizon argal bat** (6); **gorputz argal** (5); **hain argal** (3); **luze argal** (3); **luze eta argal** (3); **mutil argal** (4); **oso argal** (9); **txiki eta argal** (3)

argal argala (5); **argala baitzen** (3); **argala da** (9); **argala ez** (3)

aurpegi argala (5); **ez argala** (4); **garaia eta argala** (3); **giza gorputz argala** (4); **gizon argala zen** (4); **lehengusu argala** (5); **luze eta argala** (4); **luzea eta argala** (3); **ni argala** (3); **osaba argala** (12); **oso argala zen** (4); **zen argala** (3)

argalago zegoen (9); **baino argalago** (11)

baino argalagoa (5)

argal argalak (5); **argalak baino** (3); **argalak ikusi** (3); **emakume argalak** (3); **gizon argalak** (5); **lehengusu argalak** (4); **osaba argalak** (13)

osaba argalaren (5)

gizon argalari (3); **osaba argalari** (4)

argaltxo bat (3)

---

argaldu, argal(du), argaltzen *(ETCn **1.194** agerraldi)* **1** *(ETCn **1.194** agerraldi)* mamia galdu, mehetu. ik **flakatu**.

Gustatu egiten zitzaion tertulietan, berak eta bere lagunek hoteleko kafetegian arratsaldero egiten zuten solasaldiaren hasieran, **"argaldu** egin naiz" edo "gizendu egin naiz" esatea; komentario arrunt hark lagunarteko giroa argitzen zuelako errepikapenaren poderioz. Bernardo Atxaga

Kemena galdu ez bazuen ere, **argaldu** eta zurbildu egin zen atsekabe haien garaian. Jose Morales

Oso gizen dauden eta ohiko tratamenduekin **argaldu** ezin diren nerabeei eskaintzen zaie ebakuntza egiteko aukera. Berria - Gaiak

Zergatik **argaldu** zara horrenbeste? Lourdes Oñederra

Pixkanaka gaitza areagotzen joan zitzaion: hanka eta oina **argaldu**, okertu eta ihartu egin zitzaizkion, aiztoaren ebakia edo suaren erredura sentitzeko gai ez izateraino. Askoren artean

Argaldu eta **argaldu** ikusten nian; esku bakar batekin ere altxa hezakeen bukaeran. Koro Navarro

Beldur aitortu gabea sentitzen zuen egiatan, atsekabe luzeek **argalduriko** mutil hura aurrez aurre zuela. Karlos Zabala

Egingo nuke **argalduz** joan dela Sirius berriro aske zegoela entzun zuenetik. Iñaki Mendiguren

Gauza guztiek hartzen dute zerbait nigandik, ezeinek ez dit ezer ematen, **argalduz** noa ia itzal baten tankera hartzeraino. Jon Muñoz

Hogeita hamar edo berrogei egunen buruan sukarra joan egin zen, eta **argaldurik** utzi zuen umea, hezur hutsetan. Josu Zabaleta

Gizonak trumilka, lerroan oinez, indarrik gabe, uniforme xuri marraduna soinean, buruan ilerik gabe, begiak errotik ateratzeraino **argaldurik**, hil biziak iduri. Eneko Bidegain

Presoak ikaran, begiak sarturik eta begi-ziloak belzturik, bi eguneko bizarrarekin, **argaldurik**: deusek ez zuen munduan zirelako irudimenik emaiten. Eneko Bidegain

Han aurkituko duk nire jaidura. / Maitatu dudan tokia. / Ametsek **argaldu** nindutenekoa. Juan Garzia

Polizia gazte horrek beste polizia lagun bati esan zion kontu guztia, hots, semetxoa egunean baino egunean **argaltzen**, maskaltzen eta ahultzen zihoala. Gotzon Garate

Argaltzeko erabaki sendoa hartu nuen orduan, baita neure burua zaintzeko ere. Joxan Elosegi

Karitateko Ahizpa batena bezalako diziplina eta buru-ukatzearekin, **argaltzeko** dieta egin eta ia zeukan pisuaren bosten bat kendu zuen ezkondu osteko lehenbiziko urtean, xarmarik gabeko 70 kiloetatik liraintasunezko 60 kiloetaraino. Oskar Arana

Izan ere, ebakuntza egiteko hainbat baldintza bete behar dira: 18-55 urte bitartean izatea, gorputz masaren indizea %40 baino handiagoa izatea eta aurretik egindako **argaltzeko** tratamenduek emaitza onik eman ez izana. Izugarri **argaldu** nintzen, han mugitu gabe egonik. Berria - Euskal Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Gizon garai **argaldua** zen, aurpegi-zorrotza, argi-itxurakoa. Xabier Olarra

Sudurrak neurriz kanpokoa zirudien aurpegi **argaldu** hartan. Joseba Urteaga

Harryk bere hatzen azpian Blacken beso **argaldua** biziki bihurritzen sentitzen zuen, baina gogor eutsi zion, eta beste eskuaz Black jotzen zuen harrapatutako alde guztietan. Iñaki Mendiguren

Jertsea eta bularretakoa kendu zizkidan, nire bular txiki eta **argalduak** ikusi nituen, bi aste lehenago esnez beterik zeudenak. Joseba Urteaga

Bere gorputz gazte **argaldu** samarra luzatu, makurtu, arnasa hartu eta bota, oin-puntetan ipini, besoak eta hankak altxatu. Jose Morales

Neskatoa lokarrarazteko zer erabili zuten galdetu ez zuen arren, eragindako lo sakonaren oharkabetasunean hondoratuta zegoela zirudienez, drogen menpe dagoenaren berun koloreko larruazala izan zezakeen, begien ertzak belztuta, saihets hezurrak antzeman behar zitzaizkion soin **argaldu** eta ihar-iharrean. Ibon Uribarri

3 irud/hed

Iaz makina-erremintaren sektoreak krisia pairatu zuela-eta aurten inbertsio proiektuak atzeratu eta eskarien poltsa "sano" **argaldu** dela jakinarazi zuen AFM Espainiako Makina-Erreminta Ekoizleen Elkarteko presidente Rafael Barrenetxeak atzo. Berria - Ekonomia

Esan ohi da, dibortzioaren alde, ezkontzan gozorik ezabatzen dela, horren hautsezintasuna adierazten denean; ezkon lotura gehiegi estutzen bada, **argaldu** egiten dela. Andres Urrutia

Leihoetako barroteak **argaldurik** eta ziztrindurik egonen dira herdoilaren herdoilez. Joseba Sarrionandia

Bide batez, AEBetako Armada sendotzea agindu zuen Kerryk: 40.000 soldadu gehiago bidaliko dituela, ez derrigorrez Irakera, baizik eta ahalmen militarra indartzeko Armada munduan **"argaldua** " dagoen honetan. Berria - Mundua

4 (era burutua adizlagun gisa)

Sendatu zenerako 20 egun koman pasa eta gero, guztiz **argaldua** zegoen, 68 kilo inguruan. Berria - Harian

Higatua eta **argaldua** zegoen eta, hala ere, lotan, lasai eta beldurrik gabe zirudien. Agustin Otsoa

Hegazkinetik jalgi delarik, mehatua, **argaldua** (berak aitortu du 12 kilo galdi zituela) berehala agertu du bere irriñoa. Herria

Han zegoen Eligio, Jugoslaviako bizitzaren akidurak **argaldu** eta kolorgetua, azala masail hezurretan atesatua, tisiko baten gisan, eta begi urdin haiek une batetik bestera desegin behar zitzaizkiola ziruditela: baina alai, beti bezala, kanturako edo barrerako prest beti. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
argaldu egin zara (3); **argaldu egiten** (3)
argaltzen ari (3); **argaltzen hasi** (7)

---

argalgarri *izond* argaltzen duena.

Produktu **argalgarrien** iragarkietan bezala! Jon Muñoz

---

argalgune *iz* argaltasunezko gunea.

Jakina, gizaki bakoitzak bere **argalguneak** ditu; gobernadorea, aldiz, gizon ezin prestuagoa da. Jose Morales

Abnegazioa, bihotz-zabaltasuna une erabakigarrietan, ausardia eta buruargitasuna batetik, eta, horrekin batera, berekoitasuna, handinahia, harrokeria, edozein huskeriarengatik sumintzeko joera eta gizabanako orok berezko dituen beste **argalgune** horietako asko. Jose Morales

Oharrarazi beharra dago ezen zenbait damak -zenbait esan dut, ez guztiak- **argalgune** txiki bat zutela: norberaren soin-atalen bati bereziki erakargarri irizten bazioten, zela bekokia, zela ahoa edo besoak, uste izaten zuten denek erreparatuko ziotela fisionomiaren atal eder horri, eta aho batez esango zutela: [...]. Jose Morales

Denok dugu **argalgune** txikitxo bat: barkabera samarrak izaten gara geure buruarekin, eta inguruan bilatzen dugu gure haserrearen zama noren bizkarrera bota. Jose Morales

---

argalkeria *iz* argaltasun gaitzesgarria.

Garaile ageri zen, zabal eta eroso hartzen zuen arnasa haritz argizko jangelan; azukrea erretzeko gogoa zuen, han sumatzen zuen **argalkeria** doilor usaina uxatzeko. Karlos Zabala

---

argaltasun *iz* argala denaren nolakotasuna.

Agian horregatik, zuzenean begiratzen ez dizulako, ez da ia konturatzen, edo tarteka bakarrik antzematen du zure liraintasuna nola ari den **argaltasun** bihurtzen, nola jantzi zabalak bakarrik erabiltzen dituzun, gero eta zabalagoak, gero eta eroriagoak. Lourdes Oñederra

Robineren aurpegi bizardun eztia, Clémenceren soslai serioa, Charveten **argaltasun** zurbila, Logreren konkorra, eta Gavard, eta Alexandre, eta Lacaille, haren bizitzan sartzen ziren, gero eta leku handiagoa hartzen zuten hartan. Karlos Zabala

Parisen gordetzen den liburu batean esaten da hori: Erdi Aroko alkimiaren oinarrizko estatutuetako bat da -Russellek bizkortasun sinestezinaz altxatu zuen bere **argaltasun** izugarria-. Fernando Morillo

Liana baten malgutasuna, lerro baten **argaltasuna**. Jon Muñoz

Motxila handiegia du bizkarretik zintzilik, eta horrek areagotu egiten du bere **argaltasuna**. Eider Rodriguez

Gehiegia zen haren **argaltasuna**, eta haren irudiaren lerroetan lehengo izakiaren arrastorik ez zen sumatzen batere. Koro Navarro

Ez zituen itxurari buruzko kezkagatik ere egiten, zeren garai haiek, 1933, 1934, tuberkulosiaren itzalagatik, ez baitzuten preseski **argaltasuna** famatzen. Bernardo Atxaga

Argaltasunaren balorea islatzen dute, ez osasun irizpideengatik, baizik eta estetika baloreengatik. Berria - Euskal Herria

Hiri hura ia gainezka egin arte asebetetzen zen, zuzenbidearen defendatzaileak erbestean gosez hiltzen ziren bitartean; haien sufrimenduen ordaina, bere **argaltasunaren** mendekua hartuko zituen, berak egingo zuen justizia, altxamendua merkatuan bertan hasiko zela amesten zuen, eta tripakadaz eta mozkorraldiz beteriko erresuma hura zanpatuko zuen. Karlos Zabala

Gure gizatasunaren eta **argaltasunaren** egiazko haragia. Askoren artean

Oso argala zen, hilotz baten **argaltasunekoa**, gogoetak barrenetik jaten dituen ero batzuk argal izan ohi diren bezala, zeren pentsamendu gaixoak sukarrak edo bularrekoak baino gehiago jaten baitu gorputzaren haragia. Josu Zabaleta

---

argaltxo *izond adkor* argala, argal xamarra.

Bai, neskatila **argaltxo** bat, irribarretsua eta begi iheskorrak zituena. Bego Montorio

Maratilari jira eginda, esku batean erretilua zeraman emakume **argaltxo** bat sartu zen barrura. Joxemari Urteaga

Txitxikovek ez zien arretarik jarri, ez haiei eta ez aldirietan osteratxoa eginik makila mehea eskuan berriz etxera zihoazen funtzionario **argaltxo** ugariei ere. Jose Morales

Filchek Norris andrea izeneko katua zeukan, hauts-koloreko katu **argaltxo** bat, bonbillatxoak bezalako begi irtenak zituena, Filchek bezalaxe. Iñaki Mendiguren

Kareizko betaurrekoak, oraindik modan ez zeudenean, **argaltxoa** neurri egokian, ipurditxo mardula, ahotsa ondo modulatua, den-dena zekien zuzenbide penalez eta besteez, edukazio handi-handikoa, ezkertiarra -must bat, garai hartan-, irribarre zoragarria, xarmanta zen guztiz, ondo pentsatuz gero. Karlos Zabala

---

argaltze *iz* mamia galtzea, mehetzea.

Gaitzak eragindako **argaltze** bizkorra saihestu zuten, eta ez ziren hil. Berria - Gaiak

Begiek lodiegi dagoela adierazten diote buruari eta gazteak irudi horren kontra borrokatzen du, **argaltze** prozesua gehiago azkartuz oraindik. Berria - Euskal Herria

Neurriz kanpoko **argaltzearen** ondoren gorputza ahuldu eta hilerokoak desagertzen doaz. Berria - Euskal Herria

Gaitzak eragindako **argaltze** bizkorra saihestu zuten, eta ez ziren hil. Berria - Gaiak

---

argalune *iz* argaltasunezko unea.

Orok bezala Inesek ere **argaluneren** bat eduki behar zuen, eta loreek euria bezala, berak bizimodu erosoa behar zuen ez ihartzeko. Migel Angel Mintegi

---

argamasa 1 *iz* kareorea.

Karkazail **argamasa** askatu zitzaion, ipar haize meheak mugiarazi buneta plantan jartzen zuela: [...]. Itxaro Borda

Loturik eusten zionak, **argamasa** sekretu horrek, utzi zioan izateari. Xabier Olarra

---

argamasadun *izlag* argamasa duena.

Hor egonik bi etxeak ere urte multxo bat sekulan baino hutsago, horra gazte batzu agertu direla behaka: batek lurrak hartuko bere alor eta pentze eskasegien osagarri, besteak berriz egoitza hori bere baxenabartar kaleriarekin... eta beste batek **argamasadun** trapala apalago hura. Herria

argazki *(ETCn **108.084** agerraldi)* **1** *iz* fotografiaren bidez lortutako irudia. ik **erretratu 2**.

Argazkiaren ondoan, aurreko urtean Bar Asturianoko mus txapelketan irabazitako oroigarria. Jon Maia

Ilean pasio-lore gorri batekin eta begi-ertzetan marra ezinago meheekin ageri zen **argazkian**. Oskar Arana

Lehenik eta behin, **argazkiak** egin behar dituk. Alberto Ladron Arana

Samurai keinu handiz ekin nien otsailei, guztiz akabatu arte, Yumimoto egutegian hil haren edergarri bideratu zuten Fuji mendi elurtuaren **argazkiaren** kontrako mimozko borrokan gupidarik gabe enplegatuz. Joxan Elosegi

Agidanez, jendeak sinesgarriagotzat hartzen ditu **argazkiak** ilustrazioak baino. Txema Ramirez de la Piscina

Coca-cola bat eskaini, eta hautsez betetako pisua erakutsi dit, eta bere ezkontzako **argazkiak**. Iban Zaldua

Hitzak ondo ilustratzen dituen **argazkia** dator azpian: bi lagun, zein baino zein gihartsuagoak, pose erotikoak egiten. Patxi Iturritegi

Beti sakelako diru zorroan bere aitaren **argazkia** eramaten zuen. Gotzon Garate

Uda garaia bide zen **argazkia** atera ziotenekoa. Lourdes Oñederra

Ordaindu, eta **argazkia** ateratzera joan zen Ruche jauna. Jon Muñoz

Izan ere, programarekin batera egunkarian azaltzen baitzen Agnès de Espinosa biolin-jotzailearen izena, eta izenaren ondoan **argazkia**. Felipe Juaristi

Xenofobia, klasismoa, naziotasuna, astero zegoen zertaz idatzi, jatorkeria, arkeria, abertzalekeria, hura zen emana, zaparrada, tituluak, **argazkiak**, idazkera, eta hala ateratzen nintzen, publizitatea, kirola, agenda, gero eta lasaiago. Iñigo Aranbarri

- **Argazkian** ikusi nian tatuaia, liburu batean, nazien krimenak jasotzen zituen liburu txar batean. Koldo Izagirre

Aitari esker, nire posta txartelen bilduma osoa eta nire zinemako izarren **argazkiak** lehendik ekarriak baitzituen, horrekin guztiarekin horma oso bat apaindu ahal izan dut, horiek itsasgarriz itsatsiz. Josu Zabaleta

Pelikuletan bezala, **argazkiak** begiratu nahiko lituzke orain, 63 urteren ondoren, baina ez du **argazkirik**. Eider Rodriguez

Eskuko poltsatik bere lagunaren **argazkia** atera eta aurpegi aurrean jarri zion kontulariari. Anton Garikano

Gida praktiko sinplea ala **argazkiz** ederreztatua hartuko zuen kalkulatzen zihoala emazte batek kuskatu zuen. Itxaro Borda

Ez dute izango inolako zure **argazkirik** buruan. Hasier Etxeberria

Hurrengo goizean, behingoagatik El Correo erosi, eta hantxe ikusi nuen neure **argazkia** lehen planan. Joxerra Garzia

Bere sodio-lanparen argiarekin parekatu zuen, berehala ezkutarazten baititu kolorea eta ñabardura xumeak; bai eta zuri-beltzeko film batzuekin ere - "Tri-X filmetan lastertasuna bortxatuz egindako **argazkien** antzekoa" - iruditzen baitzitzaion; halako kontraste-efektu zakarra sumatzen zuen, nonbait. Xabier Olarra

Begi-keinua eginez, Safakek bere txartela eman dit, txintxo itxurako gazte gorbatadun baten **argazkia** erakusten duena, eta desagertu egin da aldapan behera. Jon Arretxe

Putz egin nuen beiran **argazkiak** ikusteko. Koro Navarro

Argazkiko emakumeak baino gehiago zaintzen zuen gorputza. Migel Angel Mintegi

Aldizkarietako batek Aljeriako gerra zuen ia hizpide bakar, eta hango **argazkietan** agertzen zen mundua uniformez jantzita zegoen: kapelak, botak, fusilak, mando-gorotzen usaina iradokitzen zuten longainak... Anjel Lertxundi

Orain, nire gaurko aurpegia eta orduko **argazkietakoa** konparatzen dudanean, ez naizela askorik aldatu ohartzen naiz. Anjel Lertxundi

Aitamen **argazkiaren** oinetan, amak utzi arrosarioa, haien fedearen errespetuz. Piarres Aintziart

Honek errana dit zubi honen potreta edo **argazkia** ikusi zuela Paueko prefeturan, paperren eta kontratuen egitera joan zenean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lainezek azpian diren bi **argazkiak** seinalatu dizkio. Pello Lizarralde

Beheko suaren gaineko apalean zeuden **argazkiek** bakarrik erakusten zuten zenbat denbora igaro zen. Iñaki Mendiguren

Oraindik ez gintuztela derrotatu, poster bat osatu genuen egunkari txatalez, edukiko zutela atzera ere gure berri, plaza errearen **argazkiekin**. Koldo Izagirre

Harreman estuagoa izan genuenean, berarekin ibilitako antzerkiko emakume famatuen **argazkiak** eta gutunak ere ikusten utzi zidan. Koro Navarro

Aurkikuntzek ez dute, normalean, bertze horien tamaina izaten, baina badute xarma erantsi bat, lantokiko barne-harremanen **argazkia** eskaintzen baitute. Aingeru Epaltza

Gainaldean, baso eder baten **argazkia** dator. Pako Aristi

Bagenuen halakoen aditzea, ikusiak genituen **argazkietan**, baina egun hartara arte ez dut uste benetan sinesten nuenik ere egiazkoak zirenik, eta zinez hegan egin zezaketenik. Mirentxu Larrañaga

Txaketako patrikatik katalogotik erauzitako **argazkia** atera zuen eta espaloiaren bestaldean zihoan emakumearekin erkatu zuen. Harkaitz Cano

Oraingoan **argazkiak** handiagoak ziren. Xabier Olarra

Momentu horren **argazkia** sarbide ezin hobea izango da prentsa idatzirako. Jon Arretxe

Argazkiekin batean eskutitz mordoa ere aurkitu nuen, denak gerra garaikoak, baina izugarri maiztuak, aitak mende bat lehenago idatzi eta milaka pertsonak irakurri balitu bezala. Alberto Ladron Arana

Sexu-heziketako eskuliburu lodikote bat eskuratu nuen nonbait, aitonaren liburutegian, nik uste, eta gizon bat eta emakume bat agertzen ziren hango **argazkietan**, larru gorrian, begiz begi, zutik, dena ezin neutroago. Karlos Zabala

Mutikoa sotoan omen zegoen, beti bezala, **argazkiak** errebelatzen. Juan Garzia

Biharamun goizean, lo lasaigarri baten buruan esnatu zenerako, emakumeak prestaturik omen zion nortasun berriaren zirriborroa, nor garela uste izateko aurrean behar dugun **argazkia**, gure nitasuna finkatzen duen kontakizuna. Joxean Agirre

Kamioiaren kabina hainbat amabirjinen estanpaz eta **argazkiz** apainduta dago. Iban Zaldua

Nire sendagile-maleta hartu nuen; zure gutunak, amaren eta osaba Daviden **argazkiak** hartu nituen, aitarekin zauden **argazkia**, Puxkinen liburu txikia, Nire Errotatik Gutunak, eta Maupassant frantsesez, Bizitza bat duen hura, hiztegi txiki bat. Felipe Juaristi

Egun hura imajinatu nahi izan nuen, Mallonak mahaiaren gainean zeukan **argazkiari** begira. Edorta Jimenez

Argazkian ezin argiago ageri zen senarraren autoa "Los Abetos" hoteleko aparkalekura sartzen (hala zioen, bederen, inguruan ezarritako kartel handi batek). Josetxo Azkona

Patrikan, Isabel, neurrigabe maitatutako neskaren **argazkia** zeraman. Joseba Zulaika

2 (izenondoekin)

Argazki zaharrak, karikaturak eta, inoiz gustatu ez zaidana, horma errotuladorez zikindurik berriro. Joseba Sarrionandia

Hirugarren atean, ostera, guztiz bestelako zerbait zegoen itsatsita: **argazki** handi bat zen, eta bertan mutil gazte beltzaran eta irribarretsu bat ageri zen, bere kotxe dotorearen alboan harro, eskiak eskuan, elurrez inguratutako etxe handi baten parean. Jon Arretxe

[...] agertuko lekizkigukeen **argazki** koloretsuz hanpatu hilabetekari bat eskas genuela. Itxaro Borda

Etxean dugun **argazki** zahar bat etorri zait gogora, eta neke handirik gabe josi dut haren irudia Jexux kontatzen ari zaidan pasadizoan. Xabier Etxabe

Argazki koloreztatu batzuk zeuden han-hemenka zintzilik, paisaia malenkoniatsuak gehienak. Alberto Ladron Arana

Baina ezarriko dut bizkar zakuan **argazki** miresgarriek beterikako liburuxka. Piarres Aintziart

Argazki ona izanen da. Xabier Montoia

Gure amaren mesanotxearen gainean haren **argazki** marguldu bat zegoen, lastozko kapeluarekin eta goranzko bibote txikiekin. Fernando Rey

Lehengo egunean **argazki** txiki marguldu bat aurkitu nuen xukapaper baten azpian. Monika Etxebarria

Kostaldeko errepideetan jarri dituzte lema horiek, haur ederrez eginiko **argazki** erraldoien gainean. Hasier Etxeberria

Harryk ongi aztertu zuen **argazki** mugikorra, eta irribarre zabal bat agertu zitzaion aurpegian, bederatzi Weasleytarrak berari sutsu agur egiten ikusi zituenean piramide handi baten aurrean. Iñaki Mendiguren

Zelaian zeuden batzuk ahaztuta zeuzkan, ezin zien izenik jarri, **argazki** zaharretan bezala. Unai Elorriaga

Aurten, kazetan, **argazki** harrigarri bat ikusi dut eta komentarioa. Gotzon Garate

Halaxe egin nuen, bada, egun hartan ere, aldizkari ilustratu bateko **argazki** bitxi bati begira nengoela. Anjel Lertxundi

Esate baterako koktel batean edo **argazki** ofizialen bat egiten ziotenean. Unai Elorriaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zarauzko Photomuseumek Gunter Foergenek **argazki** bilduma bat jarri du ikusgai; Alvaro Siza arkitektoak Galiziako Komunikazio zientzien fakultatean egindako lana dute oinarri argazkiek. Berria - Kultura

Memoria: **argazki** jarraipen soila, ordenarik gabekoa. Lander Garro

Gaur jakin dugu Van Daan jaunari oparitu dioten hautsontzia, Dusselentzako **argazki** koadroa, eta aitarentzako liburu-euskarria, Voskuijl jaunak egin dituela guzti-guztiak. Josu Zabaleta

Oso ondo moldatzen da objektu mugikorrekin, baina ez du **argazki** pilarik gordetzen, ezer hoberik ez denean haiek lasai-lasai ikusteko. Irene Aldasoro

Ikasi nuen **argazki**-kimikan jarduna zela beti lanean: hamar urte Italian, lau Alemanian, gero berriro ere Italian. Juan Garzia

Bazirudien, orotara, txakur arrunten **argazki**-konposizio antzeko bat zela. Mirentxu Larrañaga

Izan ere, hizkuntza baten historia bere xehetasun guztietan denboraren iraganari jarraituz berreraiki ahal izateko, hizkuntza horri unez une eginiko **argazki** kopuru azkengabea behar genuke esku artean izan. Isabel Arrigain

Haren berri jakin nahi duenak, **argazki**-puskok bildu eta elkarren ondoan jarri beharko ditu, bakoitza bere lekuan, puzzle bat osatzerakoan bezala. Joxerra Garzia

4 ***argazki album***

Argazki album bat ere biltzen du bertan. Berria - Kultura

Argazki-albuma berriro hartuta, beste behin aztertu zituen Mireiaren erretratuak. Fernando Morillo

Eskarmentu handia nuen umeak bainatzen, esan nion, eta, frogatzeko, **argazki-albuma** hartu nuen liburu-apalategitik eta Rachelen argazkiak erakutsi nizkion; haietako batean, mirariz, alaba agertzen zen, sei edo zazpi urterekin, bainuan burbuila artean. Oskar Arana

Bere liburuak albo batera bota eta azkar aurkitu zuen bila zebilena: Hagridek duela bi urte eman zion **argazki-album** larruztatua, bere aita eta amaren argazki sorginduz betea. Iñaki Mendiguren

Liburua Urrutia batek opari egindako **argazki-album** harrigarria da, XX. Edorta Jimenez

Irekitzera ausartu gabe begiratu nituen apal okertuen sostengu gisa zituen gaztetako liburu zaharkituak, **argazki albumak**, institutuko apunteak eta eguneroko itxurako koaderno azal-lodiak. Joxean Agirre

-Lopeztarren **argazki-albuma** ... -murmurikatu du aitak, amak emandako zerrendatik lehenengo itema errepikatuz. Iban Zaldua

Zakurron argazki nahiko daukat nire **argazki albumean**. Gotzon Garate

Orrialde bat besterik ez du hartzen 1975 urteak nire **argazki albumean**. Agurtzane Juanena

Ez dauka **argazki albumik**. Sonia Gonzalez

Louiseren giltza sarrailan entzun nuenean, ahal bezala itxi eta arrapataka itzuli nuen bere lekura begiratzen niharduen **argazki album** lodi bat. Hasier Etxeberria

5 ***argazki denda*** *(orobat* ***argazkidenda*** *g.er.)*

Uribarriko **argazkidenda** batean egin zizkiguten argazkiak, eta ez ginen oso pozik irten estudiotik paperezko lauki zuribeltzak eskuan genituela. Javi Cillero

Izan ere, seme-alabarik ez eta **argazki-denda** Justori uztea izan zen osaba-izeben nahia eta ilusioa. Joxemari Urteaga

Goazen **argazki denda** batera, muztaxako aparra urtu baino lehen! Koldo Izagirre

Senarrak zeharka begiratu zion argazkilariak Notre Dame de Lorette karrikako **argazki-denda** ttipi hartako erakusleihoan ezarri berri zuen argazkiari, bere burua bertan ezagutzea arras kostako balitzaio bezala. Harkaitz Cano

6 ***argazki film***

Gaur egungo **argazki-filmak** kolore iluneko atzealdea izaten du argi hori harrapatzeko, eta begiak ere badu horren oso antzeko segurtasun-sistema bat. Irene Aldasoro

Bereziki, Kang Minek **argazki-film** misteriotsu bat jasotzen duen sekuentzian. Berria - Kultura

"Hainbat **argazki film** zahar eraman genituen. Berria - Euskal Herria

7 argazki kamera

Argazki-kamera merke baten objektiboa f/16koa izan daiteke; horrek esan nahi du foku-luzeraren 1/16 dela objektiboaren irekiera. Irene Aldasoro

Angelu zabaleko **argazki kamera** batek bezala, arrain-begiko lentea duen kamera batek bezala. Harkaitz Cano

Zorionez, askotan erabili ohi dudan **argazki-kamera** digital txikia gainean neraman. Fernando Morillo

Txinari hegazkinak, autoak eta makinak saltzen dizkio EBk, eta konputagailuak, sakelako telefonoak eta **argazki kamerak** erosi. Berria - Ekonomia

Begi, **argazki kamera**, eta mikrofono guztiak Eibarrera begira daude. Berria - Kirola

Pelikula kimikoa erabiltzen duten **argazki kamerak** eta haientzako objektiboak egiteari utziko dio Japoniako Nikon konpainiak, eta buru-belarri sartuko da argazkigintza digitalean. Berria - Gaiak

Argazki kamerak, mikrofono ezkutukoak, katalejuak, detektibe batek behar dituen aparatu guztiek beti egon behar zuten, hori baitzen Morales jaunaren agindu zehatza, bulegoan. Joxemari Iturralde

Argazki kamera baten aurrean segurtasun handia duena bezala, hantxe zegoen irribarrez, lotuak eskuak, burua pixka bat makurtua, arrosak lepoa ukitzen ziola. Koro Navarro

Kontua da, ordea, ez dugula **argazki kamerarik** eraman, ez Sarasuak, ez Egañak ez nik. Joxerra Garzia

Deskubritu genuen zer mekaniko bat zela, espia begiluze halako bat, bere **argazki kamera** edo satelite digital eta guzti. Karlos Linazasoro

Argazki kamera bategaz miratzen zidala azaldu zen Olasoneko jauna isilean. Koldo Izagirre

Puntuan ixteko aprobetxatuko zuen, **argazki kamera** hartu eta atezainaren ganbarara hurbiltzeko. Joxemari Urteaga

Egun hauetan beti ikusi dut **argazki kamera** aldean zuela, txaluparekin ateratzen. Iñaki Iñurrieta

Horretarako **argazki kamera** bat eta Arriba España egunkariko bere adiskideek eginiko agiria besterik ez zuen behar. Alberto Ladron Arana

Bere memoria eidetikoari esker, ikusten zuen oro garunetan artxibatzen zuen, **argazki kamera** baten azkartasunaz eta objetibitatez. Karlos Linazasoro

8 argazki-kazetaritza

magnum agentziarekin **argazki-kazetaritzaren** sortzaileetako bat izan zen, une gorena harrapatzearen garrantzia aldarrikatu zuen eta zapalduak goratu zituen. Berria - Kultura

9 ***argazki makina*** *(orobat* ***argazkimakina*** *g.er.)*

Euri langarra ari zuen San Frantziskon, eta suediarra edo islandiarra ematen zuen andre gazte bat kale kantoi batean zegoen zira transparente batekin eta **argazki makina** bat eskuetan zuela. Bernardo Atxaga

Gehiegi erabili ez duen **argazki makina** bat eta oharrez beterik ekarri dituen kaierekin Italian barneratu zen Anjel Lertxundi bederatzi egunetan, Berriarako erreportaia sorta bat idazteko. Berria - Kultura

Navajo-en erreserba batera joan zen behin gizon azal zurbil bat, **argazki makina**, grabagailu eta bideo-kameraz beteta ibili ohi den horietakoa, indiarren kontuak ezagutu nahian ibiltzen diren azal zurbil horietakoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bizkar-zorrotik **argazki-makina** atera eta, zergatik edo zertarako jakin gabe, argazkia egin nion. Juan Luis Zabala

Maniobraburua etorri zen eta nik soingainekoko sakelatik aparatu hura atera nuen, linternaz argi eman nion eta berak gurpiltxoak jirarazi zituen, **argazkimakina** bat fokatzen ariko balitz bezala. Fernando Rey

Goitik beheraino arakatu naute, eta grabagailua eta **argazki makina** eraman dizkidate aztertzeko. Pako Aristi

Une horretantxe, **argazki makina** pentsamendua irakurtzeko makina balitz bezala, emaztearen gogoetak iritsi zaizkio istant batez gizonari. Imanol Zurutuza

Begia miniaturazko **argazki-makina** batekin konparatu izan da askotan. Josu Zabaleta

Izkina batetik Txetxu agertzen da, **argazki-makina** , flash eta halakoak lepotik zintzilik. Xabier Mendiguren Elizegi

Ibilian-ibilian, **argazki-makina** kargatzen du. Anjel Lertxundi

Norabidez aldatu nintzen Madeleine geltokian, oporretan zirela ageri zitzaien turista amerikano adinduen hatzetarik; **argazki makinak** lepoan tilingo zeramatzaten eta goraki mintzo ziren: [...]. Itxaro Borda

Bi autobus, bata japoniarrena, betaurrekoak eta **argazkimakinak** , bestea amerikarren anorak eta prakekin. Jon Alonso

Argazki-makina soil bat besterik ez da, baina torturatzeko asmakizun batekin nahastu duzu. Rafa Egiguren

Bere barnean tiro hotsak entzutean, bihotzaren taupadek **argazki-makina** automatikoaren disparo bizien abiadura hartu zuten. Joxemari Urteaga

Sarritan, egunsenti aldera betiere, kodak **argazki-makinaz** ateratako erretratuen erakustaldiak fortunatu ohi ziren eta are malko-jarioak. Mirentxu Larrañaga

Azken batean, jende gaztea gara herri-aldizkarietan gabiltzan gehienok, beti magnetofonoarekin eta **argazki-makinarekin** ibiltzearen poderioz bizkarra behar baino lehenago okertzen hasi bazaigu ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Kamerak, eta **argazki-makinak** berdin, izugarri bihurritu dezakete perspektiba (oso fokal luzeak edo oso laburrak erabiliz, besterik ez bada ere); Kalkulu hori arras erraztu zen, eta automatiko bilakatu zen, argazkiarekin: **argazki-makina** bikoitz sinkronizatu bat hartu eta bi objektiboak begien arteko distantzia berera jarririk, eszena beraren bi ikuspegi zertxobait aldenduak hartzen zituzten bi plaka atera zitezkeen. Josu Zabaleta

Foku luzeko gure **argazki makinek** mikroskopio gisa balio digute hemen. Josu Zabaleta

Bizkaiko agintari gorenak eta Lagun Aro taldeko zuzendaritzako kideak han zirela, hots handiarekin egin zen ekitaldia, kamera gizonen eta **argazki makinetako** flash argien artean. Berria - Kirola

10 *argazki marko*

Argazki markoak erabiliko zituen erakusleihoan diapositiba markoak balira bezala. Joxemari Urteaga

11 *argazki markodun*

Komodara gerturatu, zigarro bat piztu, eztultxo batzuk egin eta, bekozkoa ilun samar, egoera ez oso benetako batetik libratu izan balitz bezala, komoda gaineko **argazki markodunei** eta gauza sailari begira hasi zen. Ander Irizar

Bere gelan, inolako apaingarririk ez, **argazki markodun** batzuk soilik, amaren egunerako egindako tapeteak eta, sutondoaren gainean, ume baten busto handi bat, zeramikazkoa, altzari-saltzaileak oparitu ziona diban bat erosteagatik. Joseba Urteaga

12 *argazki markoztatu*

Ez urkamendiaren gisakoak diren korridoreetako hormetan kakoz zintzilikatutako **argazki markoztatuak** eta ez gaumahaitxoetako rutinaren lekukotza ematen duten erretratu gogaikarriak. Harkaitz Cano

Sigmund Freud-en **argazki markoztatua** kontsultako mahaiaren gainean, Jung-en lan osoak apalategian, sekula erabili ez dudan besaulki modernista-antzekoa gelako ertz batean, pipa beti piztua ahoan. Iban Zaldua

Betiko iratzargailua, farias kutxa, Senencitoren soldaduskako **argazki markoztatua** , ondoan aitarena, errepublikako soldadu izan zenean herrian ateratakoa, Marisa eta Laureanoren ezkontza-argazkia eta beste pare bat ilobarenak, Laureano eta Marisa gure amarekin eta aitarekin Valentziara joan ziren udakoa bat eta herriko jaietan baserritar arropekin jantzita bestea. Jon Maia

13 *argazki muntaia* *(orobat* ***margazkimuntaia****)*

Absolut vodka labelak ere **argazkimuntaia** bat egin zuen bere garaian, Brooklyngo zubiko arku gotikoak beren botilaren itxuran eraldatuz, ABSOLUT BROOKLYN lemapean. Harkaitz Cano

Rosalind Williamsek Reina Sofiaren ordezkari gisa eta Adelina Moyak Artiumen izenean prestatu dituzte bai Gasteizko bai Madrilgo erakusketak, eta 61 argazki, 24 **argazki muntaia** , 18 marrazki, 21 margo eta Lekuonaren 50 objektu aukeratu dituzte. Berria - Kultura

14 *argazki oin*

Argazki-oineko letrek ziztor amorratuak ematen dute, egundoko abiadan mugitzen dira, ezin ditut elkarrekin lotu. Anjel Lertxundi

Horren alboan, **argazki oinik** barik, gizonezko baten argazkia dugu. Edorta Jimenez

Orobat, ohiko sumarioak idatzirik nituen, baita lehen orrialdeko laburpena -1.240 karaktere- eta **argazki-oin** sail bat ere, bertze hainbertze portretaren lagungarri. Aingeru Epaltza

Argazki oinak : "Tratu txarrak ematen dizkieten emakumeentzat Erakundeen arteko Akordioa sinatu dute". Iñigo Aranbarri

Oroigarriak, lore sortak, hildakoen **argazki-oinen** azalpenak: "accidentally killed». Berria - Kultura

Argazki-oinean Ramon Rabanerak parrandarako duen zaletasuna uzten zen agerian, modu xelebrean. Txema Ramirez de la Piscina

"Ehunka lagunek harrera beroa egin zioten bart gauean Inazio Tordesillas preso ohiari... "-edo jarriko dik **argazki oinetan** . Jokin Muñoz

Eta **argazki-oinean** zioen mutiko hau Hogwartsera itzuliko zela... Iñaki Mendiguren

Argazki oinak ez zuen asko argitzen. Alberto Barandiaren

Argazki oinak honela zioen: "Frantzia, 1944". Koldo Izagirre

15 *argazki-safari* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi* ***1****)*

Asteburuetan, **argazki-safarian** joaten zen Ruvubuko natur parkera, zapela-kamiseta-galtzamotzaksandaliak-galtzerdiak jantzita. ETC-literatura, saiakera

16 *argazki zuzendari*

Irabazi berri duen sariak "zirrara izugarria» eragin dio **argazki zuzendariari** . Berria - Kultura

Izendatuen artean hainbat euskal herritar daude: Pablo Malo zuzendaria, Unax Ugalde aktorea, Javier Agirresarobe **argazki zuzendaria** eta Supertramps animazio filma, besteak beste. Berria - Kultura

Izaera horretan sakontzen lagundu dio Asier Valverdek, **argazki zuzendariak** . Berria - Kultura

17 *argazkia atera*

- Eta utzi egin diek **argazkia ateratzen** ? Koldo Izagirre

Beragatik izan ez balitz ez nintzen San Frantziskora joango, eta ez nizun **argazkia ateratzeko** eskatuko. Bernardo Atxaga

Argazkilari bat honantz etortzekoa zen zuri **argazkia ateratzeko** ... Lopez de Arana

Protokolo huts bihurtu dira, **argazkia ateratzeko** besterik ez. Ana Urkiza

Ikusi behar zenuen Peterrek jarri zuen aurpegia, **argazkia ateratzekoa** zen! Josu Zabaleta

Argazkia atera nahi diet baina ezin da; han barruan ezin da ezer argazkiratu. Pako Aristi

"Euskara bizi publikoan" zioen banderolaren gibelean **argazkia atera** dute CRS lerroaren aitzinean. Herria

Han, berebiziko **argazkia atera** zuen: neska txiki bat ageri da, kokoriko lur elkorrean, burua eta ukondoak lur gorriaren gainean. Iñigo Aranbarri

Aurrena **argazkia atera** zuen koaderno beltzetik. Joxemari Iturralde

Oroitzen naiz gazte batek esaten zidala Lutero kondenatu zutela **argazkia atera** ez zuelako. Pello Salaburu

Hor Creevey gaztearekin zeundenean disimulatzen lagundu dizut..., berak niri ere **argazkia ateraz** gero, zure ikaskideek ez dutelako pentsatuko hain handiustea zarenik... Iñaki Mendiguren

Eskuineko aulkia, mahaitik pixka bat apartatua, hutsik dago, **argazkia ateratzeko** jaikia baita argazkilaria. Imanol Zurutuza

Argazkia atera zuen sakelatik. Karlos Zabala

Uda garaia bide zen **argazkia atera** ziotenekoa. Lourdes Oñederra

Argazkia ateratzera joaten zen sarritan. Joseba Urteaga

Atera kontuak! Fartsa bat egin nahi zuten, gurekin **argazkia ateraz** auzia nola edo ahala ixteko. Berria - Harian

Espainiako Kopako finaleko posterraren **argazkia atera** berri du. Berria - Kirola

18 *argazkia egin*

Bigarren **argazkia egiteko**, hurbildu egin du irudia zoomarekin. Imanol Zurutuza

Argazkia egin zion, eta galdetu. Jon Alonso

Alfaro izan ezik, Gorrotxategi, Garate eta besteak, nahi zuten **argazkia eginda**, ez dira ostera azalduko. Xabier Montoia

Bat-bateko argitasunak **argazkia egina** dagoela eman dizu jakitera. Rafa Egiguren

Sara ez da kameraren botoia etengabe sakatzea atsegin duten horietakoa, eta luzaro pentsatu ohi du **argazkia egin** aurretik. Iban Zaldua

Bizkar-zorrotik argazki-makina atera eta, zergatik edo zertarako jakin gabe, **argazkia egin** nion. Juan Luis Zabala

Carola garabiaren aldamenean azken **argazkia egitera** xaxatu dituzu, bisita horren tragikoa amai ez dadin. Urtzi Urrutikoeetxea

Argazkia egiteko baimena eskatu nion. Gotzon Garate

Artxiboetan aukitu zizkidaten nire argazki guztiak argitara eman zituzten, eta horrekin unibertsitatean nengoela "Adonis" tankeran **argazkia egin** zidaten eguna madarikarazi zidaten, klubaren publizitaterako beso banatatik neska bat nuela atera baininduten. Xabier Olarra

Colinek kamera bilatu eta **argazkia egin** zuen, justu kanpaia jotzen hasi zenean arratsaldeko eskolak hasten zirela adierazteko. Iñaki Mendiguren

Begira gelditu zitzaidan **argazkia egin** nuen arte. Koldo Izagirre

Zenbat urte ote nuen nik **argazkia egiterakoan**? Txillardegi

Zuzen-zuzen begiratzen dio kamerari, **argazkia egiteko** une hartantxe ikusi bide du argazkilaria, kamera berari buruz duela, klik egiteko unean. Iñaki Iñurrieta

19 ***argazkizko*** *izlag*

Badirudi erraz bereiz daitezkeela, orobat, **argazkizko** erregistroa (argazkia aztarren bezala hartua) eta argazki bidezko formalizazioa (argazkia idazketa bezala hartua), eta gauza erraza dela argazki-irudiaren automatikotasunak hura gerora berriro lantzea ez duela eragozten pentsatzea. Josu Zabaleta

Historian zehar pinturako irudikapenean eta, geroago, **argazkizko** irudikapenean erabili diren sistemek konbentzionaltasun horixe dute denek, eta etengabe errepikatu beharko da perspektiba-sistema baten ordez beti erabil litekeela beste bat, irudiak ematen duen informazioa askorik galdu gabe. Josu Zabaleta

Argazkiaren eta **argazkizko** artearen inguruan izan diren etengabeko eztabaiden muina ari gara ukitzen. Josu Zabaleta

Argazkizko erretratu baten modeloa (edo erretratu margotu batena, kode naturalisten arabera-edo egina bada) erraz ezagutzen badugu, pertzepzio-iraunkortasunari esker ezagutzen dugu hala. Josu Zabaleta

Henri Maldineyren lanetan ere aurkitzen da; haren iritzian, "perspektiba gehiegiaren eraginez" errealitatearen mundua argiegi bihurtu da, **argazkizkoegi**, eta misteriozko bihurtu du pinturaren gaia Josu Zabaleta

20 ***argazkien errebelatze*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Argazkien errebelatzea plaka edo argazki-pelikula batean dagoen irudi latentea ikustarazteko egiten den prozesua da. ETC-entziklopedia

21 ***helmugako argazki*** ik **foto 3**.

Freire berak ondoren ez zekiela ziur eta denak **helmugako argazkiaren** zain. Berria - Kirola

Etapa garaipenaren jokoan, Boonenek irabazi zuen, baina **helmugako argazkiari** itxaron behar izan zioten epaileek garailea erabakitzeko. Berria - Kirola

Bi pilotuak batera-batera sartu ziren eta **helmugako argazkia** ere ez zen nahikoa izan garailea nor izan zen erabakitzeko. Berria - Kirola

22 ***pantaila-argazki*** *(corpusean ez dago; ETCn **34** agerraldi)*

Pantaila argazki txikiz bete zitzaion. ETC-literatura, saiakera

Pantaila-argazkiak ateratzeko lehenetsitako aukerak eskaintzen dituzte sistema gehienek, baina aparteko aplikazioak ere instala daitezke funtzionalitate gehigarriekin. ETC-prentsa

Aplikazio bakoitzeko deskribapen bat eta **pantaila-argazki** batzuk erakusten dira. ETC-prentsa

WebPage Screenshot gehigarriak web orrialde osoen **pantaila-argazkiak** ateratzea ahalbidetzen du. ETC-prentsa

Hau da, bideoak ikusteko aplikazioak bilatu ahal dira, eta deskribapenak, **pantaila-argazkiak** eta ezaugarriak begiratuta, gustukoena instala daiteke. ETC-prentsa

Aurrerantzean, ez da egongo oztoporik webak, ahotsezko mezuak, **pantaila argazkiak** eta ia nahi den guztia jasotzeko libreta birtual honetan. ETC-prentsa

Adituak aholkatu duenez, hoberena irudiaren **pantaila-argazkia** egitea da. ETC-prentsa

Irudiak editatzeko, **pantaila-argazkiak** editatzeko, aurkezpen digitalak prestatzeko dauden hamaika aplikazio erabil daitezke infografiak prestatzeko: KolourPaint, Tux Paint, LibreOffice Draw... ETC-entziklopedia

Bideo-tutorialak prestatzeko erabil daiteke, **pantaila-argazkietan** oinarritutako bideo-tutorialak prestatzeko. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

argazki asko (17); **argazki atera** (9); **argazki bakar** (9); **argazki bakarra** (13); **argazki bana** (8); **argazki bat** (258); **argazki bat atera** (21); **argazki bat egin** (9); **argazki bat erakutsi** (7); **argazki batean** (49); **argazki batek** (14); **argazki batekin** (10); **argazki baten** (26); **argazki bati** (11); **argazki batzu** (10); **argazki batzuen** (8); **argazki batzuk** (54); **argazki batzuk atera** (7); **argazki bilduma** (20); **argazki eder** (16); **argazki ederrak** (10); **argazki erakusketa** (63); **argazki erakusketa bat** (18); **argazki erakusketak** (8); **argazki eta** (122); **argazki eta bideo** (23); **argazki eta guzti** (12); **argazki gehiago** (15); **argazki guztiak** (12); **argazki haiek** (10); **argazki handi** (23); **argazki handi bat** (19); **argazki hartan** (12); **argazki hau** (16); **argazki hauek** (7); **argazki hori** (25); **argazki horiek** (22); **argazki horietako** (9); **argazki horretan** (17); **argazki huntan** (17); **argazki hura** (26); **argazki irudia** (9); **argazki irudiak** (7); **argazki irudiaren** (10); **argazki kamera** (41); **argazki kamerak** (10); **argazki liburu** (10); **argazki liburua** (7); **argazki makina** (34); **argazki makinak** (10); **argazki press** (57); **argazki sorta** (14); **argazki sorta bat** (7); **argazki tresna** (8); **argazki txiki** (7); **argazki ugari** (8); **argazki xahar** (8); **argazki zahar** (15); **argazki zaharrak** (17); **argazki zati** (8); **argazki zuzendaria** (7); **ateratako argazki** (12); **beltzezko argazki** (7); **bere argazki** (13); **beste argazki** (36); **beste argazki bat** (15); **bi argazki** (23); **egin argazki** (7); **egindako argazki** (7); **eginiko argazki** (9); **ehunka argazki** (7); **hainbat argazki** (22); **haren argazki** (10); **nire argazki** (13); **zenbait argazki** (9); **zernahi argazki** (7)

argazkia atera (46); **argazkia ateratzeko** (14); **argazkia ateratzen** (7); **argazkia egin** (29); **argazkia egiteko** (9); **argazkia erakusten** (7); **argazkia erakutsi** (11); **argazkia hartu** (12); **argazkia ikusi** (23); **ateratako argazkia** (10); **azken argazkia** (9); **baten argazkia** (26); **bere argazkia** (14); **egindako argazkia** (8); **gure argazkia** (9); **haren argazkia** (18); **ikus argazkia** (8); **lehen argazkia** (9); **nire argazkia** (7); **zure argazkia** (7)

argazkian ageri (14)

---

argazkidenda ik **argazki 2**.

---

argazkidun *izond* argazkiak dituena.

Guk arraunketa naturalean baino arinago eramaten zuen batela ziaka, bokalearen erdiraino egiten zuen lentan, aldizkari **argazkidunak** erakusten zizkigun frontoi atzean, ez zekien zatiketak egiten, motor berria zekarren astero. Koldo Izagirre

---

argazkigailu *iz* argazki makina.

Espinosa del Camino: Santa Cecilia karrikaren plaka **argazkigailuan** hartu dut: lauki zuzen bat, mosaiko urdinak inguratua eta eskuin, goian, itze hori bat dirudiena, maskorra. Piarres Aintziart

Bizkar zakua eta gidaliburua pausatzen ditut bazterrean eta hona denak **argazkigailuan** sartuak. Piarres Aintziart

Zenbat taula, zenbat zedarri, beren gezi horiekin sartu ote ditut ene **argazkigailuan**? Piarres Aintziart

Argazkigailuak klik, baina ez dakit nondik ateratu zakurrak haizatu nau, eta fite. Piarres Aintziart

Ene aitaren irudia datorkit segidan gogora, Kalifornian, artaldearen aurrean zegoelarik, **argazkigailuari** so: arduradun fier. Piarres Aintziart

Geldi geldia jarri da eta **argazkigailuko** leihotik tente potente, ardi xurien erdian, agertu zait. Piarres Aintziart

---

argazkigile *iz* argazkiak ateratzen, argiazkiak egiten dituen pertsona.

Barthesek argazki bat (argazki bera) atzemateko bi modu kontrajartzen ditu: **argazkigilearen** argazki eta ikuslearen argazki deitzen die. Josu Zabaleta

Irizpide horrek oso bereizkuntza baliagarria egiten du -gehiegizkoa ere bai, agian- **argazkigilearen** egintzaren eta ikuslearen egintzaren artean. Josu Zabaleta

"Argazkigilearen argazkiak" eszena-antolamendu esanguratsu bat eskatzen du, ikusleak ezagumenaren bidez deskodetu behar duena; "ikuslearen argazkiak", ordea, guztiz harreman subjektibo bat gehitzen dio lehenengo harreman horri. Aurpegia aurpegi hura zen: **argazkigile** jakintsu batek zahartu eta aldi berean nobleturik, neure gainetik hain garai entzuten nuen ostera erruki adigabe eta iraizekoz oraturiko hitz haiek, "zergatik duzu halako itxura artega?". Josu Zabaleta

---

argazkigintza 1 *iz* fotografia, irudiak lortzeko teknika; argazkiak ateratzeko jarduna edo ogibidea.

XIX. mendeko **argazkigintza** guztiak formatu bertikala erabili zuela, horretan margolaritzan ongi finkaturik zegoen tradizio bati jarraituz. Josu Zabaleta

Argazkigintzari buruz idatzi diren historia guztietan aipatzen da bi joera nagusi izan zirela argazkiaren asmakuntzan (nahiz ez dituzten betiere atera daitezkeen ondorio guztiak ateratzen): [...]. Josu Zabaleta

Gauza bera gertatzen da kolorezko **argazkigintzako** eta zinemagintzako prozedura moderno guztietan. Josu Zabaleta

2 *argazkigintza dokumental*

"Odiseak izenburua ere bere bidaien isla da», azaldu du Serrasek.1984az geroztik, Rodriguezek argazkilaritzan egin du lan buru-belarri, eta batez ere **argazkigintza dokumentala** landu du. Berria - Kultura

---

argazkilari 1 *iz* argazkiak ateratzen dituen pertsona, eskuarki bizibidetzat argazkigintza duena.

Gure **argazkilari** Patxik, panteoi handi batera igota, frankotiratzaile ero bat ematen zuen, kamerari su atera beharrean. Aingeru Epaltza

"Le Journal" kazetako **argazkilaria**? Ramuntxo Etxeberri

Hola aldizkariko erreportariak eta **argazkilariak** ere han zeuden, haiek beren mikrofono eta grabagailuekin, eta hauek beren argazki-makinekin. Joan Mari Irigoien

Kazetari, kamerari eta **argazkilari** asko hurbildu zen atzo Casa del Campora,auzi saioa jarraitzera. Berria - Euskal Herria

Argazkilari bat honantz etortzekoa zen zuri argazkia ateratzeko. Lopez de Arana

'Izebak argazki makina bat oparitu zidalako izan naiz **argazkilari'**, entzungo dugu elkarrizketaren batean. Pako Aristi

Argazkilari batek argi moteletan lan egin nahi duenean, film lasterrago bat aukeratzen du. Irene Aldasoro

-Orain irrino bat denek - **argazkilaria** presatua zen. Itxaro Borda

Hor ikusten dut berriro **argazkilaria**, kamera begien parean hartuta. Anjel Lertxundi

Ertzain, erizain, **argazkilari** eta abarren joan-etorriak, jendearen jardunak, sirena-hotsak eta flash sarriak. Anjel Lertxundi

-Zuek ez al zarete ba kazetariak? -galdetu zigun **argazkilariak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Argazkilariak botoia sakatu eta makinak klik egin orduko elkarrengandik bereiztu beharrean egokituko zirela, eta bereizte hori betiko izango zela segur aski. Imanol Zurutuza

Argazkilariak ezin izaten du eskuarki kamera erabat geldi eduki segundo baten berrogeita hamarrena baino luzeagoko esposizioetan. Irene Aldasoro

Maleta beltz bat dakar berekin, ertz metaleztatuak dituena, **argazkilariek** erabiltzen duten horietakoa. Harkaitz Cano

Argazkilariak fotoak egiteko gertutzen ziren bitartean zure galde egin zuten. Koldo Izagirre

Senarrak zeharka begiratu zion **argazkilariak** Notre Dame de Lorette karrikako argazki-denda ttipi hartako erakusleihoan ezarri berri zuen argazkiari. Harkaitz Cano

Hitz ponpoxoak eta **argazkilariaren** flashak. Aingeru Epaltza

Bi **argazkilariren** 40 argazki, kolorezko eta xuri-ta-beltzezkoak, dira ikusiko. Herria

Indarkeria modernoa jorratzen du hogei **argazkilariren** 'Collectivos 2004' erakusketak Miarritzeko Irudien Lurra jaialdian. Berria - Kultura

Punto y Horan garai hartan bizpahiru **argazkilarirekin** lan egiten zuten, baina argitaratzen ziren argazki asko herrietako jendeak eginak ziren. Alberto Barandiaren

Dokumentaletako **argazkilari** edo zinemagile handiak, Flaherty-rengandik hasi eta Depardon-enganainokoak, mundua erakustearekin batera beren begirada erakusten digutenak dira. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aski al da argazkiak egiteko tresneria ongi menderatzea **argazkilari** ona izateko? Josu Zabaleta

Argazkilari finak film mota bat baino gehiago erabiltzen du. Irene Aldasoro

Jacques Henri Lartigue, Frantziako **argazkilari** handietarik da. Herria

Argazkilari berrizalea. Berria - Kultura

Orduan **argazkilari** ofizialak haserre alde egiten du. Edorta Jimenez

Askok pentsatzen ez badute ere, "Manterola **argazkilari** profesionala baitzen". Berria - Kultura

Badirudi, bada, kameraren dardarak -**argazkilari** amateurraren hondamendiak- ez duela eraginik begian. Irene Aldasoro

Ez zen etiketa zale eta aspaldian lagun batek, beste **argazkilari** historikoak, Robert Capak, horien arriskuaz ohartarazi zion. Berria - Kultura

Alfred Stiglitz **argazkilari** estatubatuarrak Georgia O'Keeffe emazte pintorearen eskuei 1920an ateratako argazkia zen. Berria - Kultura

AFP albiste agentziako **argazkilari** palestinar bat zauritu zuten, banaketa hesiaren aurkako manifestazio baten irudiak hartzen ari zelarik. Berria - Mundua

Argazkilari militarrak aurrez jartzeko agindu zion, baina ama ez zen jiratu. Juan Kruz Igerabide

Dokumentaletako **argazkilari** edo zinemagile handiak, Flaherty-rengandik hasi eta Depardon-enganainokoak, mundua erakustearekin batera beren begirada erakusten digutenak dira. Josu Zabaleta

Prentsako **argazkilari** baten arabera, istiluen aurkako poliziek ostikoka erabili zuten eta lurrean zapaldu. Berria - Ekonomia

Bigarrenean emakumezko **argazkilari** bat ari zen beste emakume bati argazkiak ateratzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Naturaren eta Euskal Herriaren maitale suharra da urruñar **argazkilaria**. Herria

Hona zer idazten zuen 1896an Henry Peach Robinson XIX. mendeko ingeles **argazkilariak**: [...]. Josu Zabaleta

3 (izenondo gisa)

Robert Capa lagun **argazkilaria** Euskal Herrian izan zen maiatzeko lehenengo egunetan. Edorta Jimenez

4 (adizlagun gisa)

Argazkilari zebilela, musika taldeentzako disko azalak, kartelak, eta sorkuntza lanak burutu zituen. Lander Garro

Egun, Oarsoaldeko Hitza egunkarian kazetari eta **argazkilari** dihardu. Lander Garro

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aldean Dionisosi berari hartutako Yashica bat zeraman, astekari madarikatu hartan erredaktore eta **argazkilari** lanak, biak batera egin beharra baitzeukan. *Singapore Straits Times* kazetan **argazkilari** lanean ibili zen. Unai Iturriaga

Ohe ondoko ispiluan Veronica zegoen, **argazkilari** lanetan. Harkaitz Cano

Argazkilari moduan izan duen esperientzia kontatu du Donostiako Okendoko Kultur etxean jarri duen erakusketan: "Munduarekin izan dudan esperientzia kontatu dut. Berria - Kultura

Hiri honek **argazkilari** sena, margolari sena, zerbait egiteko sena pizten dizu. Harkaitz Cano

Erraz bildu liteke **argazkilari**-familia oso bat bat-bateko argazki adierazgarriaren zaletasunaren inguruan. Josu Zabaleta

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Munduan zehar, 15 bat urtez, erreportalari-**argazkilari** bezala ibili ondoren, 1983 urteaz geroztik, piaia guziak utzirik, buru belarri pasioz emana da eskultura eta poesia idatziari. Herria

Prentsa **argazkilari** hauen irudiak izango dira: Javi Etxezarreta (Alboka taberna), Gari Garaialde (Bukowsky taberna), Juantxo Egaña (Argintz taberna), Ander Gillenea eta Josune Martinez Albeniz (Mandragora taberna), Jose Mari Lopez eta Amaia Zabalo (Casa Galicia Jatetxea) ,Pablo Sanchez (Motoclub taberna) eta Txomin Txueka (El Muro taberna). Berria - Kultura

Soinean daraman blusa gardenak ikusmira handia piztu du moda-**argazkilarien** artean. Patxi Iturritegi

Eskola-**argazkilariengana** joan zen, bada, MTGD, haien zerrenda lortu baitzuen; mesfidantzaz hartu zuten denek. Jon Muñoz

Bere zereginean hildako lehen emakumezko gerra-**argazkilaria** da, beharbada. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argazkilari amateurren (3); **argazkilari bat** (17); **argazkilari batek** (6); **argazkilari baten** (6); **argazkilari estatubatuarra** (4); **argazkilari estatubatuarrak** (3); **argazkilari moduan** (3); **argazkilari ona** (3); **da argazkilari** (8); **gure argazkilari** (5); **prentsa argazkilari** (4); **zuen argazkilari** (3); **zure argazkilari** (3)

argazkilaria da (8); **argazkilaria ere** (3); **patxi argazkilaria** (3); **pavlovsky argazkilaria** (3); **zen argazkilaria** (3)

argazkilariak berak (5); **argazkilariak bere** (5); **argazkilariak dira** (3); **argazkilariak ere** (5); **argazkilariak ez** (5); **argazkilariak izan** (3); **du argazkilariak** (3)

argazkilariarekin hitz egin (3)

argazkilarien biltzarra (3)

---

argazkilaritza **1** *iz* argazkilariaren lanbidea.

Zentzu zabalenean kulturaren bertz handi bat bezala ekarria den gune horretan, arte plastikoak, musika, soinua, zizelkadurak, bideoa, **argazkilaritza** , dantza eta ipuinak, oro bildurik eskainiak izanen dira heldu den maiatzean. Herria

Ez da ahaztu behar desenkoadratze horiek oso kritika gogorrak ekarri zizkietela beren garaian (XIX. mendearen azken laurdena), une horretako pinturan guztiz indarrean zegoen koadratzearen konbentzioa **argazkilaritzaren** ikusmolde nabarmen batez kutsatzen zutelako. Josu Zabaleta

Argazkilaritza ere ikasi dut denbora honetan. Lander Garro

Gure garaitik ezin bereizi dezakegun kultur nortasunaren eredu dira, EHUko **argazkilaritza** irakasle Josu Bilbao Fullaondoren arabera. Berria - Kultura

2 ***argazkilaritza erotiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Argazkilaritza erotikoaren modeloa biluzik edo ia biluzik paratzen den pertsona da. ETC-entziklopedia

---

argazkimakina ik **argazki 3**.

---

argazkimuntai ik **argazki 4**.

---

argazkipean *iz* argazki oinean.

Berandu barik, Tomen maletaren hondoan ostendua, gutunazal bat topatu nuen, eta bertan Mexikoko pasaporte bat, baina bibotearekin agertzen zen Tomen **argazkipean** Mariano José Pérez izena ageri zen... Patxi Zubizarreta

Argazkipean datoz kanpainaren argibideak. Pako Aristi

---

argazkiratu ik **argazkitu**.

---

argazkitu *(orobat **argazkiratu** g.er.)* du *ad* argazkia atera, argazkia egin.

Elizaren gibelean, hamabosgarren mendeko urkabe platerezko luzeari so egonik, **argazkitu** dut, eta elizan sartu naiz. Piarres Aintziart

Atentzio osoa horretan ipinita, paretak osatutako eremuz kanpokoa **argazkitu** zuen, argi izpien lorratzak paper sentikorretik igeltsuzko hormaraino luzatuz. Eider Rodriguez

Bizpahiru argazki abiatu aitzin lehenik erakustoki bilakatua den palloza murru soliduen gainean, lasto bonet bat, haize azkarrenari desafioz bezala gostuan jarria gero so egon naiz **argazkitu** dudan ikusgarriari herriaren heinean dagoen eta mendiaren mazela ferekatzen ari den hodei xuri zabalari. Piarres Aintziart

Udabidean turistak eta newyorktarrak, lehenak kameraz eta dena-ikusi-**argazkitu** -behar antsiaz, bigarrenak hiri zalapartatik minutu batzuetan atsedendu nahiz, eskailera horietan jartzen dira. Iñaki Zabaleta

Paper horietan, ez dizut esango gure argazkiak zeudenik, baina han **argazkituak** geunden gu. Jokin Urain

Argazkia atera nahi diet baina ezin da; han barruan ezin da ezer **argazkiratu** . Pako Aristi

---

argazkizale *iz* argazkien zale dena.

Fernando **argazkizale** amorratua duk. Lutxo Egia

Egoera berri horretaz etsi eginda, aldapan gora doa, oine-oine, **argazkizale** talde baten arrimuan, katedraleraino. Javi Cillero

Zer gertatzen da, baina?, bada, jostetako **argazkizaleentzako** film batek hutsen bat badu, hamarretik bederatzian beraren errua dela pentsatzen dik erabiltzaileak. Juan Garzia

Ez da familia bereziki **argazkizalea** izan gurea; gurasoek ez ziguten argazkirik ateratzen, eta nik neuk ere ez dut aparteko zaletasunik. Xabier Mendiguren Elizegi

Eraztunen argazkiak hartzeko aukera ona beraz, eta **argazkizaleok** adi, 2014. urtera arte ez baititugu horren parez pare berriz ikusiko. Berria - Gaiak

---

argazkizaletasun *iz* argazkizale izateko nolakotasuna.

Juana Aizpuru ere izen bereko galeria du Madrilen bat dator Alemaniakoen iritziarekin, baina "Donostian **argazkizaletasuna** sustatzeko denbora eman behar zaio DFotori", bere ustez. Berria - Kultura

Orduan ekin ziela hainbat xelebrekeriari, besteak beste, **argazkizaletasunari** . Bego Montorio

---

argeliar *(orobat **arjeliar**) izond/izlag* Argelian jaioa.

Gizona **argeliarra** da eta emakumea, berriz, brasildarra. Berria - Euskal Herria

Asko (etorkinak, besteak beste), paperik eduki ezean, kanpoko espetxe batera igarotzen dira zigorra bukatu ondoren; Ahmed **argeliarraren** kasua da hori. Berria - Euskal Herria

Gisele Halimi **arjeliar** abokatuak *Le procès de Burgos* liburu ospetsua 1971an kaleratu zuenean; 16 ETAkide epaituen gorabeherak kronika ezin biziagoan dena zehazki azalduz. Berria - Harian

---

argentinar *(orobat **argentindar** g.er.)* **1** *izlag* Argentinakoa, Argentinari dagokiona.

Argentinar herritarren oraingo egoera ez da elikagai faltak eragina, argentinarren eskubideak zapaltzen dituen NDFren politika neoliberalak eragina baizik. Iñaki Heras

Argentindar gizonak xapeldun paletan, gomazko pilotarekin. Herria

Han ezagutu zuen Ernesto Guevara, **argentinar** sendagile bat bere anaia Raúlen adiskidea zena, eta geroztik "Che" ezinenez ospetsu egingo zena. Jon Muñoz

640 urteren presondegirat kondenatua izan da Adolfo Scilingo **argentinar** militar ohia bere gizarteari egin abrekeria eta krimentzat. Herria

Fiorentinak egin duen azken fitxaketaren antz ikaragarria du, Batistuta **argentinar** aurrelariaz ari naiz. Patxi Iturritegi

Aitatxi Bernardo bizi guzian Ezeizan egon zen **argentinar** estatuak lurrak espropriatu arte aireportuaren eraikitzeko. Herria

Bihotzikarak izan ziren oraino, euskal jantziak, ikurriñak eta **argentinar** banderak nahasi zirelarik populu baten alaitasun betean. Herria

Lugones-en *Las fuerzas extrañas* (1906) gora-behera, **argentinar** prosa narratiboak ez zuen gainditzen, eskuarki, alegatua, satira eta ohituren kronika. Juan Garzia

96 **argentinar** dogo, 32 brasiliar fila, 49 kanariar presa, 37 napolitar mastin. Gotzon Garate

Beraz, **Argentinar** gaualdi hori izanen da irailaren 28an aratseko 8etarik goiti Irulegiko salan Baigorriko bide bazterrean. Herria

Bere liburu asko zeuden han, **argentinar** edizioak batez ere. Bernardo Atxaga

Informazioa horiek, espainiar banderadun itsasontziez, Argentinan ziharduten komunisten fitxaketaz, azken hau bigarren mundu gerran amaitu ostean, eta **argentinar** politikagintzan garrantzizkoak ziren pertsonez ziren. Edorta Jimenez

Smith faltsu haietako beste bat japoniar korporazio bateko exekutibo bati edo **argentinar** eraikuntza-enpresari bati saltzea lortzen zuen bakoitzean, bere bihotz zigortuak jauzi egiten zuen zoriontasunezko berrogeita zazpi uztai zeharkatuz. Oskar Arana

2 *izond*

-Egile bat asmatu behar izan nion nobelari, euskaldun jatorriko emakume **argentinar** bat, neuk itzultzaile gisa agertzen jarraitzeko. Joxean Agirre

Apustuen ikuskizunaren ondoren, ordura arte formal samar egondako andre **argentinar** batek hartu nahi izan zuen txanda. Jon Arretxe

Andres Neuman idazle **argentinar** gaztea. Edorta Jimenez

Lehenengo aldiz daude bi tenislari **argentinar** torneo handi bateko finalean. Berria - Kirola

Irakurketa galarazteari buruzko beste aldaera interesgarri baten berri aurkitu nuen behin liburu **argentinar** batean. Anjel Lertxundi

Atleta errumaniarraren itxura edukiagatik, azentu **argentinar** nabarmenaz mintzo zena. Jon Alonso

3 *iz*

Leo Messi **argentinar** gaztea. Berria - Kirola

Hernan Jasen hartu behar izan zuen defentsan, eta horretaz baliatu ziren madrildarrak, saskipeko jokoa behartzeko hegaleko **argentinar** indartsuarekin. Berria - Kirola

Argentinar askok alde egin dute beste herrialde batzuetara egoera hobe baten bila. Berria - Mundua

Zer esan ordea **argentinar** bati, nahiko garia eta behikia baduelako, munduko herririk gorena delako uste osoan badago? Patziku Perurena

Une horretan Delfino **argentinar** gaztearen maila gelditu zen agerian. Berria - Kirola

Otu zitzaidan ni ere izan nintekeela **argentinar** lotsatia. Harkaitz Cano

4 ***argentinar dogo***

Can Picafort-en, Mallorcan, Francisco Miguel Hiraldo, 4 urteko umeak **argentinar dogo** baten ahutzetan izan. Gotzon Garate

5 ***austral argentinar*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Austral argentinarra (gaztelaniaz: "Austral"), Argentina Argentinako Errepublikan 1985etik 1992ra zirkulazioan egon zen dibisa da. ETC-entziklopedia

6 ***dogo argentinar***

Pabilioietako apustuetan lehiatzen zirenak doberman, presa canario, rottweiler, **dogo argentinar**, pitbull edo bulldozerrak lako zakur handiak izan arren, entrenamenduetarako zakur ttikiak erabiltzen zituzten sparring bezala, handiagoek bertan sarraskitu eta txikitzen zituztenak. Harkaitz Cano

7 ***paleta argentinar*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Esaterako, gomazko paleta ezker-horman, edo **paleta argentinarra** trinketean. ETC-prentsa

Modalitate asko dago: larruzko paleta eta gomazko paleta edo **paleta argentinarra** dira aipagarrienak es paleta; fr palette. ETC-zientzia, zuzenbidea

Berdintasunaren bidea bultzatu nahi dute pilota munduan, jarduera eta egitura profesional batera iristeko helburuarekin. Bestalde, oso ezagunak ez diren pilota modalitateak sustatzea du, halaber, helburuen artean, hala nola ezer hormako gomazko paleta, edo trinketeko **paleta argentinarra**. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argentinar bat (8); **argentinar batek** (3); **argentinar dogo** (4); **bi argentinar** (3)

argentinarra da (10); **argentinarra ere** (6); **argentinarra ez** (4); **argentinarra fitxatu** (5); **argentinarra izango da** (4); **atzelari argentinarra** (6); **aurrelari argentinarra** (6); **gaitan argentinarra** (4); **nalbandian argentinarra** (3); **paola suarez argentinarra** (3); **zen argentinarra** (5)

aktore argentinarrak (3); **argentinarrak bere** (4); **argentinarrak ez** (4); **argentinarrak hiru** (3); **argentinarrak irabazi** (4); **aurrelari argentinarrak** (8); **david nalbandian argentinarrak** (4); **du argentinarrak** (3); **gaitan argentinarrak** (5); **hegal pibot argentinarrak** (4); **hegaleko argentinarrak** (6); **jokalari argentinarrak** (8); **joko banatzaile argentinarrak** (3); **porto argentinarrak** (3); **talde argentinarrak** (4); **zuen argentinarrak** (8)

argentinarraren aurka (3); **argentinarraren hutsunea** (3); **argentinarraren itzulera** (3); **du argentinarraren** (3); **idazle argentinarraren** (4); **zinemagile argentinarraren** (3); **zuzendari argentinarraren** (3)

---

argentindar ik **argentinar**.

---

argentinera *iz* espainieraren Argentinako aldaera.

Una-muno-k intelektual argentinar, txiletarren joerak gaitzesten ditu -Bilboko zakarkeriarik gabe, hori bai-, horiek nahi izaten baitute beren buruak kulturalki frantsesagoak aitortu espainolak baino, eta euren hizkuntza ere **argentinera** edo txilera kontsideratu, ez espainola. Joxe Azurmendi

Hau guztia **argentineraz** blaituriko azentuaz esaten zuen; baina ez **argentineraz** blaituriko euskaraz, baizik eta **argentineraz** blaituriko **argentineraz**, gauza jakina baita Argentinako euskaldunak, euskaraz ari direlarik, eibarreraz, goizueteraz edo markineraz egiten dutela, eta Argentinaratutako eibartar, goizuetar eta markinarrak, erdaraz ari direlarik, ordea, **argentineraz**. Jon Alonso

---

argentino *iz/izond* argentinarra.

Horra nola diren zinez euskal bestak pilotaren horiek eta hori da ahantzi ez duguna hemen, español, frantses, **argentino**, uruguaino, kubano, txileno eta beste batzu izendatuko ditugularik egun hautan. Herria

Ez hori bakarrik, eta hau oraino haundiagoa, **argentino** militar bat ere, duela hogei urteko krimentzat, Madrilen jujatua da, Adolfo Salingo, bederen 150 ukaldi txarrentzat, eta hunek 9.138 urte presondegi irriskatzen ditu. Herria

---

argentita *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* *iz* zilar sulfuroa.

Tenperatura horretatik gora existitzen den forma egonkorra **argentita** da. **Argentita** tenperatura horretatik behera jaisten denean bere egitura kubikoa deformatzen da eta monokliniko bilakatzen da. ETC-entziklopedia

Metal aske gisa agertzen da, baina baita mea mineral askotan ere, hala nola **argentitan** eta klorargiritan. ETC-entziklopedia

---

argi *(ETCn **270.654** agerraldi)* **1** *iz* gauzak ikusgai bihurtzen dituen erradiazioa.

Gauean soinu jotzen hasi eta inguru guztietako baserrietako **argiak** biz arazten zituzten. Koldo Izagirre

Ez dut bestalde **argirik** eta lana utzi behar izaten dut gautu orduko, eta oso, oso, oso mantso idazten dut. Joxan Elosegi

Argia beretik atera du -kandela sorta handi bat erosi zuen atzo Parisen- luma eta tintontzia bezala. Aingeru Epaltza

Natura dastagarria besterik ez du ikusi **argi** eta kolore artean: funtsean, paisaia eta emakumeak bakarrik. Koldo Izagirre

Argia itzali, eta segituan isildu ziren. Joxean Sagaztizabal

Gorria bere aulkian eserita dago jadanik, leihotik goizeko **argiari** begira. Joseba Sarrionandia

Eta arbola haiek gure **argi** aldera erakartzea omen genuen xede nagusi. Inazio Mujika Iraola

Isilean gelditu ginen, euriaren errezel mugikorrak ahultzen zituen Bavariako **argiei** begira. Alberto Ladron Arana

Etxera itzuli nintzenean, gela guztietako **argiak** piztu nitinan, eta ispilu aurrean paratu nindunan. Eskarne Mujika

Argi bat piztu zitzaion hiruki aldekidea demostratu zuen lehenengoari. Ibon Uribarri

Ikonoaren azpiko lanparatxo gorri-beltza zen gelako **argi** bakarra, eta ordu arte inoiz beldurrik eman ez bazidan ere, orduan beldurra eman zidan. Matías Múgica

Liburu honek nekez ikusiko luke **argia** zenbait adiskideren laguntzarik izan ez banu. Pello Salaburu

Horrenbesterekin, aske utzi ni, eta, burua sorbaldan gaindi itzulia, begirik gabe asmatu du nonbait bidea, ezen ateraino joan da soaren laguntzarik gabe, nigan josirik, azkeneraino, begion **argia**. Juan Garzia

Euli-saldo baten burrunba ateratzen zuen aire beroak, eta airean jasotako aizkora-ahoaren moduko distirak egiten zituen **argiak**. Anjel Lertxundi

Argi gutxi sartuagatik Joxeren ibilera segurua da oihanean. Pello Lizarralde

Honela dio berak: "Beti **argiaren** eta alaitasunaren kantaria izatea izan da nire xedea. Fernando Rey

Nire atzetik lau babalore zetozean, auto baten barruan, nor bere libretatxoarekin, pasatzen nintzen kale bakoitzeko leihoetara begira: zenbat **argi** piztu eta zenbat jende esnatzen nuen zenbatu behar zitean, pentsa! Harkaitz Cano

Zigarroen kea, zirimolaka, billar-mahaiaren gaineko **argiaren** inguruan. Anjel Lertxundi

Argia gero eta ahulagoa izanagatik, bisaia ikusten ahal dio orain. Aingeru Epaltza

Argia, **argia**! oihukatzen zuen arratseko zazpiak zirenean, bonbillak pizteko ordua harentzat. Fernando Rey

Airerik eta **argirik** gabeko bunker bat da, baina labanderia gertu du eta nahiko txukun dago. Harkaitz Cano

Orduan, ziur nauk, oso bestelako **argi** batez begiratuko diok matematika ilun eta lauso horri, gogoa beteko baitik, nori eta hiri, eleberri ederrenen irakurle aseezin horri. Jon Muñoz

Ezin zuen jakin haietariko eskuizkribu batzuk salbatu egin zirela eta **argia** ikusiko zutela noizbait. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Argiaren dirdai urrekarak, estoreen arteko zirrituetatik sarturik, su-txinpart txikiak sortarazten zizkion haren ile-adatsen isla gaztaingorriari. Anjel Lertxundi

Historia-aurreko zientziaren **argia** iristen den garairik antzinakoenetik beretik, euskalduna poesiara emana ageri zaigu". J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez dago kuidadorik: zinpeko zaindaria ordu hauetan goiko pisuetan dabil, eta bera ondo ezkutatuta egon da komunetan, eraikineko **argi** guztiak itzali artean. Iban Zaldua

Kanpotik elurrak islatzen zuenaz bat, toki estrategikoetan kokatu hiru-lau kandelatako **argia**. Pablo Sastre

Arratsalde goibel eta ilun honetan otu zait lerro hauek idazten hastea, leihoak ematen didan zeharkako **argiaz** baliaturik, kontatu nahi baitizut zuri, gazte horri, nola pasatu garen, urte batzuen buruan bakarrik eta ia-ia ohartu gabe, baserrietako arto landa zaharretatik hirietako arlo landu berrietara. Pello Salaburu

-Ulertzen ari naiz, **argi** bat piztu zait zure terapiaren baitan. Pako Aristi

Eta ni Xeto-z oroitzen nintzen, nire lehengusuaz, eta haren uso akrobatikoez, eta gure baratzeko mingranez, eta gure gaualdiak argitzen zituer **argiaz**. Juan Kruz Igerabide

Ez zen askorik falta iluntzeko, eta Amaiak **argiak** piztu zituen nahiz eta, oro har, ongi ikus zitekeen haiek gabe ere. Aitor Arana

Hala ere, ez da zaila pentsatzea, gauez eta **argirik** gabe, bidea luze egin zitekeela eta era guztietako mamuak ager zitezkeela bertan. Xabier Etxabe

2 (izenondoekin)

Zure aurrean eta zure heleran haizeak ihesi doaz, lur artatsuak azpian lore leunak zabaltzen dizkizu, itsas lautadek irribarre dagizute eta ortzi bareak **argi** hedatuan dizdiz. Xabier Amuriza

Izan ere, zalantzaren ilunpeetatik **argi** txit distiratsura eraman gaitzakeen arrazoi izpi bat sor baitaiteke: hor dago irakaskuntzaren hastapena; eta gero, zalantzak argitzeko, alderantzizko bidetik ekarri behar da argia. Esteban Antxustegi

Herriko beste emakume batzuek bezala, Rouengo lantegi baterako ehotzen zuen etxean, aireztatzerik ez zegoen gela batean, oso leiho estu eta luzanga batzuek sartzen uzten zuten **argi** soilaz. Joseba Urteaga

Teklak suelto zanpatu zituen, auto barneko **argi** piztuen laguntzaz. Aingeru Epaltza

Ezezagun batek, soto nahiz ganbara-zoko batean, tupustean aurkituko duen hori aurpegi berriz agertuko da gure artera, **argi** berria eginez unibertsoari buruz edo haren zatitxo bati buruz. Juan Garzia

Beraz, bikien atzetik goiko pisura joan nintzen; bidean, **argi** eskas hartan, usain beroak eta mastekatze-hotsak... baserriko beste bizidunak. Joxean Sagaztizabal

Arratseko **argi** apalarekin asmatu behar du, baina auto handiaren aurreko eserlekuetan keinuka ari direla iruditu zaio. Alberto Barandiaren

François andrea begira zegoen, bizkarra barazkiei eusteko oholtxoan jarrita, ezeri ere antzik eman gabe, Balthazarren saihets distiratsuaz gain ia deus ez baitzuen ikusten uzten ezkerraldeko kriseilu karratu txikiaren **argi** ahulak. Karlos Zabala

Heriotza batek **argi** bereziz argitzen ditu ezbeharraren aurreko eta ondoko uneak, hildakoak eman dituen azken pausoak, ukitu dituen gauzak eta egin dituen adierazpenak, azken orduko hitz edo imintzioek bizitza osoaren argibidea eman balezate bezala. Joxean Agirre

Hala ere, eskailerak eta ezkaratza, beti bezala, erdi ilunpetan, **argi** kaskarra egiten baitzuen bonbilla ilaun bakartiak. Anjel Lertxundi

Eguzkia hil daiteke, eta berriz sortu; / Guk, gure **argi** laburra hiltzen denean, / Betiko gauean lo egin beharko dugu. Patxi Zubizarreta

Argi gorriak eta arau hausteak datozkit gogora. Josu Zabaleta

Argi zuri bat da, baina egun berriko eguzkia bezain gartsua. Ramon Etxezarreta

Linternekin **argi** eskasa egiten zuten. Gotzon Garate

Bi farol nekatuk **argi** ahulez bustitzen zuten lekua. Fernando Morillo

Bi izarren talkak eragindako **argi** itsugarritik eta zarata ikaragarritik jaioa zen Toto. Juan Kruz Igerabide

Soldaduari eroria zitzaion buruko musuzapia eta orain haren burusoilak distira izerditsu bat zabaltzen zuen ilunabarreko **argi** gorrixkaren pean. Alberto Ladron Arana

Ongi gogoan dudan hiri handi hartan, aldirietako kaleek **argi** hitseko farolak zituzten, gero eta **argi** hitsagoko farolak, landan galtzen zirenak arbolen arteko iluntasunean. Fernando Rey

Zendutako gizon ospetsuaren bizitzaren eta izaeraren gaineko **argi** berria, horrela definitu zuen Americo Fonseca jaunak, Lombo de Tanquerako bidean jada, Napumoceno

jaunaren testamentuaren irekitzea. Bego Montorio

Nire bizitza azkeneko urteetan lausotu zuen laino ikusezin eta itsaskorrean, **argi** apal eta leuneko kriseilu izan nuen Nunu, bide-erakusgarri beti. Ander Irizar

Bainan joaten naizelarik ikusterat presoak - ez naiz sobera ardura joaiten, dohaike -, beti ateratzen niz handik **argi** berezi batekin. Menane Oxandabaratz

Hatza zeukan orritik ireki eta, bonbilla sabaitik zintzilikatuaren **argi** horizta motelera, irakurtzeari ekin zion Xerealek: Iñaki Iñurrieta

Gainera, berehala izaten da **argi** nagi eta txurixka alu batez agertzen hasten den eguna, hozkia ematen didana. Pako Aristi

Argi itsugarriaren borborra sumatzen zuen, haize beroak hosto idortuen artean egiten zuen hotsa, eta adi egon zen jauregiko milaka hotsei. Xabier Olarra

Baina argia zabaldu zuen andreak, eta **argi** karratu bat zen lehenago egurrezko ate bat izandakoa. Unai Elorriaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Isilean sartu nintzen, leiho bazterretik ohe barreneraino sartzen zen **argi** zerrendak behatzak argitzen zizkion amari, izararen ertzean ikusten ziren. Joseba Sarrionandia

Txubilloko itsas farolako **argi**-bala hirukunek txandaka argituta. Txillardegi

Bigarren solairu hartako paretaz kanpoaldean zegoen "Fonda Portabella" letreroaren **argi**-distirak kristalean barrena isla egiten zuen gortinetan, eta oroitu zen ostatuari bere deitura ematea proposatu zionean zelako poza hartu zuen Antoniak. Josu Landa

Kolko Mitxoleta zen gure arteko onena, gure **argi** gidaria, Belengo izarra; gure aitalehena, jakinduriazko iturri agortezina, begiratu beharreko ispilua, eredu gorena, aita pontekoa. Jon Alonso

Lurra, dena gorri eta zuri, odol eta elur, menstruazio eta esperma; eta urrunago mendien anila, **argi**-koilare batez inguratua. Eskarne Mujika

Kemalentzat natura dena da, **argi** mota bat ia. Fernando Rey

Gauaren erdi-erdian, hor hasten baita sortzen egun berriaren **argi** xinta xumea... Pello Zabala

Adaren azkeneko esaldi bat geratu zen zintzilik leihoaren eta nire arteko **argi**-zirrindaren hauts artean: Anjel Lertxundi

Badakizu ez dela debekatua zure **argi**-keinukarien erabiltzea! Ramuntxo Etxeberri

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alfer-gurpil behin eta berrirokoan itzulika gabiltza, horra, ostera ere, temati, gau-tximeleta **argiak** liluratua nola: Juan Garzia

"Nor zara zu, ene Jainko txit eztia?" esatean, kontenplazio-**argi** batean murgiltzen nintzen eta bertan, Jainkoaren ontasun, jakinduria eta ahalmen neurrigabearen leizea ikusten nuen. Askoren artean

ez da sekula kriseilu-**argirik** izango, ez eta entzungo senar-emaztegaien kanturik ere zure baitan; zeren eta zure merkatariak lurreko ahaltsuenak baitziren, eta zeure sorginkeriez herri guztiak engainatu baitituzu. Elizen arteko biblia

Urkabean, ordea, erortzen da burua, eta itzaltzen da buruko barren-**argia**. Joan Mari Irigoien

Hori onuragarriago izango zaio debozio-**argiaz** gozatzea baino, loretan dauden bertuteez poztea baino, eta berak kosta ahala kosta gozatu nahiko lituzkeen sentimenduez osatzea baino. Joan Mari Lekuona

Astiro-astiro, emandako urratsak egin zituen atzerantz, itsuka, elfo-**argia** erabiltzera ausartu gabe. Agustin Otsoa

Hostoen aldetik **argia** da ezaugarri nabarmena, bi aldetatik baitira altzairu-**argi** distiz xumea damaigutenak. Pello Zabala

• **5** *izond* argitasun handikoa.

Eta horiek guztiak luze eztabaidatu ondoren, guztiek baztertu dituzte, ez dutelako ez hankarik ez bururik; ekintza haren errua intsumisoei edota feministei egoztea ere ez zaie bidezkoa iruditu; ezen, ba al dute, egiaz, salaketa haiek jaurtitzeko froga **argi** eta erabatekorik? Karlos Linazasoro

Harizko alkandora jantzi dut, galtza **argiak**, eta larru zaharreko zapata marroiak. Lander Garro

Kontraste mingarriz beteriko mundu honetan, New York bezalako hiri handiak gizarte-bidegabekerien adierazle **argiak** dira. Lopez de Arana

Tenshi jauna gizon **argi** zuhurra zen: arrisku handian jarri zuen bere burua niregatik, eta ongi zekien gainera zertan ari zen. Joxan Elosegi

Ondoren etorriko dira Errege indartsu eta Profeta handien garai **argi** eta ospetsuak, geroago Olerkari fin eta Jakintsu sakonen lanak. Jose Antonio Mujika

Lehenik eta behin, Jesusen Ebanjelioaren ispilu **argi** eta lekuko jator dugu Frantzisko. Askoren artean

Azpian hitz laburrak eta zenbaki **argiak**. Piarres Aintziart

Infinitu potentziala kontzeptu **argia** da; ez, ordea, akzidentala. Xabier Kintana

Alkandora urdin **argi** bat zeraman, bakeroa, lore zuriko brodatuekin, eta lastozko sonbreiru batekin babesten zen eguzkitik. Bernardo Atxaga

Horretarako, poesian diskurtso bereziki irrazionala ikusten zuen tradizio jadanik mendetsuaren aurka borrokatu behar izan zuen: adierazlerik esplizituena eta **argiena** Platonen Ioia da, beronen Politeian egiten duen poeten gaitzespena ez aipatzearren. Xabier Amuriza

Gizonak badaki gezur **argi** eta garbia entzun duela. Sonia Gonzalez

Hala ere, denboraren martxak berak erakutsiko dio kartzelarien mainek xede **argia** dutela, eta ezagutza horren ondorioz, bere burua indartzen ahalko du. Filipe Bidart

Tarteka-marteka poesiak txertatuko zituen, baina bere hizkera bizia, **argia** eta herrikoia izan zen, eta, oroz gainetik, sentsualitatez betea. Patxi Zubizarreta

Eman dezagun neska **argi** batek negozio hori lortzen duela zuretzat, igoera bat izango al luke? Xabier Olarra

Lekukotasun **argia** utzi zigun Pedro Madariaga bizkaitarrak, 1565ean argitaratutako Honra de Escribanos liburuan. Koldo Zuazo

Nik neure buruari askotan esan izan diodan bezala..., oso buru **argia** izango du, bai, baina zer daki bizitzaz? Antton Olano

Modu **argi** eta berezian ezagutzen ditugun gauzak, edo gauzen propietateak dira edo haietarik deduzitzen direnak. Piarres Xarriton

Horra hor New Yorkeko alderdi **argiaren** zenbait distira. Gotzon Garate

Beraz, irakurleak bere esku du orain azterlan osoaren laburpen uniforme bat, buru **argi** batek egina, edukiez ongi jabetzeaz gain, egilearen ikuspegian eta helburuan ere ongi sartu dena. Iñaki Mendiguren

• **6** *adlag* zalantzarik edo puntu ilunik gabe.

Argi geratu zen, horrenbestez, Imanolen haserrearen arrazoia. Aitor Arana

Bi jarrera horien erdian, planeta honetako kideen gisa "jendeki" bizitzerik ez geneukala **argi** zegoen, edozein ordutan estereotipo finkoei moldatzea eskatzen zitzaigulako: artzain moduko basa ona edo goi mailako terrorista trebea. Itxaro Borda

Baina idatzita jarritakoan gauzak **argiago** ikusteko itxaropena galtzen ez dutenetakoa naizenez, idatzi egin dut. Arantxa Iturbe

Mendebaleko hodei berunezkoek **argi** erakusten zuten mezua, seinalea nahi zuenarentzat. Hasier Etxeberria

Neuk ere ez dakit oso **argi** zer dela eta hasi naizen idazten. Hasier Etxeberria

Argi dauka lanean ari denean ez dela denbora-pasa ari. Ana Urkiza

Horrez gainera, kontratuak **argi** zehazten zuen urteko izakinak berritzeko unea iritsi orduko edertasun-gaietarako eskubidea izango nuela. Joxan Elosegi

Argi gera bedi: kasu bakanak! Eta, bestalde, zer sintoma konstatatuko zenituzke zuk, jauna? Anton Garikano

Argi ulertu dut neure autoanalisiaren zati bat dela, neure aitaren heriotzaren, hau da, gizaki baten bizitzako gertakari garrantzitsuenaren, galera lazgarrienaren, aurreko erreakzioa. Joxan Elosegi

Euskal Herrian badaude espainolista konfesionalak, are euren kredo politikoan artikulu behinena espainolismoa dutenak ere, azken urteotako PP-PSOE fronteak aski **argi** erakutsi duenez. Joxe Azurmendi

Espainiako hedabideentzat ere Jokin Z. zena, abizena **argi** ematea erabaki denetik, Jokin C.L. bihurtu da egunkari abertzale batean. Iñigo Aranbarri

1947an liburua argitaratu zenean, literaturan, gazteentzako literaturan batez ere, ez zegoen ohiturarik sexu gaiak hain **argi** azaltzeko. Josu Zabaleta

Argi dago bilatzen ari naizena une berezietan aurkituko dudala - inoiz aurkitzekotan - eta herriko trena arruntegia da, ezagunegia. Unai Elorriaga

Eguna **argi** edo ilun egon, neonak beti piztuta egoten dira gure tailer eskerga horretan. Eskarne Mujika

Baina azken batean, mundua elefante batek sustengatzen zuela uste bazen duela ez hainbeste urte, eta elefante hori bigarren elefante batek eta bigarren hori dortoka batek, **argi** dago dortoka hori zalantzak bakarrik sustenga dezakeela. Harkaitz Cano

Bidea, berriz, **argi** duzu hasmentatik. Filipe Bidart

Nire arerioak joko lasaia nahi du, **argi** dago. Koro Navarro

Hori **argi** behar dut aitortu hasieratik, zutabe honen gutun izaera gera dadin garbi tinkaturik. Hasier Etxeberria

Ez zitzaion **argi** geratu, ordea, berriro ere Elias Elortza eta Jose Egiarekin joan behar ote zuen notarioarengana. Ramon Saizarbitoria

Ekartzen zidan errekadua hainbat arinen azaldu nahi zuen, **argi** zegoen. Edorta Jimenez

7 *adimen argi*

-Bai, noski -esan zuen Power jaunak-, **adimen argiek** ikusi egiten dituzte gauzak. Irene Aldasoro

Izan ere, gauzen lehenkiak ez ziren berariaz eta **adimen argiz** paratu bakoitza bere ordenan ez elkarrekin bakoitza nola mugitu erabaki, baina, betiraun guztitik hartutako kolpeen eraginez, hainbeste izan eta hainbeste aldakuntza jasanik, era guztietako mugidak eta elkartzeak esperimentatuz, azkenik gauzadi hau sortzeko eta irauteko moduko egituretara iritsi dira. Xabier Amuriza

Bururatu zitzaidan nolabait gauza ederra zela hain gorpuzkera kaskarrak halako **adimen argia** ezkutatzea. Alberto Ladron Arana

Emaiozu, bada, zure zerbitzari honi **adimen argia**, zure herria gobernatzen eta ona eta txarra bereizten jakin dezan. Jose Antonio Mujika

Bere **adimen argi** eta trebetasunagatik beste guztien gainetik nabarmenduz, esaten da zaletasun handia zuela tresna mekanikoak egiten aritzeko. Santiago Iruretagoiena

Miresmena diet **adimen argiei**. Josu Zabaleta

Badu Poek Gutun lapurtua ipuinean darabilen harridura-mekanismoaren halako aire bat: Poeren ipuineko G. polizia-prefektuak metodo sofistikatuenak baliatzen ditu lapurtutako objektuak bilatzeko, baina poliziaren **adimen argia** ez da gai ebidentzia deskubritzeko: mahai gainean eta denen bistan dago lapurtutako gutuna. Anjel Lertxundi

Han ere kalifikaziorik onenak lortu zituen letra ederretan, historian eta filosofian, eta bere **adimen argiagatik** ez ezik bere xarma bereziagatik eta berriketa biziagatik nabarmendu zen. Antton Olano

8 *argi albako* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Argi albako heltzen ziren gain haietara. ETC-literatura, saiakera

9 *argi armiarma* armiarma lanpara, beso asko dituena.

Guztietan keak belzturiko sabai berdina; guztietan **argi-armiarma** kedartu berdina, eta, handik goitik zintzilik, beiraki ugari. Jose Morales

Sabaiaren erdian **argi-armiarma** bat zegoen, artile zarpailezko zorro batean bildurik, zeinari seda-harraren kuskuaren antza ematen baitzion hauts ugariak. Jose Morales

Argi-armiarmak sabaitik dilindan, nerabeendako arropa-denda batean baino ispilu gehiago bazterretan. Aingeru Epaltza

Han-hemen, **argi-armiarmetan** eta hormetan, etxeko lanparatxo bakanak piztu zituzten. Jose Morales

10 *argi arrunt*

Gero, lehenbiziko irudia filtro gorri batetik proiektatzen zen, eta bigarrena, berriz, **argi arruntez**, filtrorik gabe. Xabier Olarra

Ba ote zitekeen (nire lagun Kevin Halliganek iradokitzen zuenez) begi-lausoak kentzean -hamarkadatan hain erretina ahulak apika babestu zizkioten begi-lauso haiek kentzean- hilgarri gertatzea Virgilentzat eguneko **argi arrunta**; erretinak erabat erretzea, alegia? Esan ohi da erretinako beste arazo batzuk dituztenei -makularen endekapena adibidez-, izugarri jasanezina zaiela argia -ultramorea ez ezik, uhin-luzera guztietako argia-, eta balitekeela argiak erretinen endekapena azkartzea. Xabier Olarra

11 *argi artifizial*

Ikusgaia eguzkiak edo **argi artifizial** bortitzak zuzenean jotzean gertatzen zitzaion hori bereziki. Xabier Olarra

Gertatzen da heroiak brontzezko arrazaren bizitza gaiztoak bizi eta heriotza ankerrez hil zirela, eta halaber Valhalla zulo zikin bat gertatzen da, **argi artifizialak** itzali eta eguneko argi soilaz borroka iskanbilatsu eta festa zaratatsuen idealizazio poetiko hau aztertzen dugunean. Iñaki Mendiguren

Jantokia ikusi bezain laster konturatu zen, alajaina, aurrerantzean **argi artifizialpean** gosaldu beharko zutela; berak biziki gorroto zuen zerbait. Mirentxu Larrañaga

Argi artifizialarekin azaleko letra doratuek nabarmenagoak ematen zuten. Bernardo Atxaga

Gaueko **argi artifizialak** espezie ugariengan eragiten du, eta animalia askoren jokabidea aldatzen. Berria - Gaiak

Argi naturala baliatzen ahalegindu ginen, ahalik eta **argi artifizial** gutxiago erabiltzen. Berria - Kultura

12 *argi aski*

Narrazio honetako gakoaren funtsezkoena osatu duten gertaera gehienen ebidentziak, **argi aski** frogatu du Raimundo Silvak ez duela atarramendu onik izan bere ikuspegiak ezartzen saiatu denean. Jon Alonso

Eguzkiaren beroa gutxituz doala dirudi", esan zuen ingurura begira, artean **argi aski** baitzegoen, belarra artean berdetasun trinko leunekoa, etxearen berdetasuna pasio lore purpurez izarreztatua, eta beleak orru hotzak jalkiz goiko alde urdinetik. Anton Garikano

Orduan, emazteak esan zidan: -Non dira zure erruki-egintzak? Non zure egintza onak? **Argi aski** dago zer gertatu zaizun! Elizen arteko biblia

13 *argi asko*

Bestelako komentariorik merezi ez duena, **argi asko** ulertzen baita. Xabier Mendiguren Elizegi

Atzo bertan, Larraitzek Urkori honelaxe esan zion, **argi asko**. Luis Elberdin

Ezkondu eta eliz-sartzeko kontua aitatu zidatenean, **argi asko** esan nion entzun nahi izan zuen guztiari: "nahi ordurako ez naiz gizonarekin lo egiten jarri!". Arantxa Iturbe

Zure aldetik, noski, Ostolazak eta biok **argi asko** daukagu hitzartutakoa. Migel Angel Mintegi

Argi asko zegok ekuazioa. Iñaki Iñurrieta

Argiztatu beharrekoa zuzen-zuzen argiztatu beharrean, inguruko bazter denak argiztatzen dituzte, eta noski, **argi asko** alferrik galtzen da. Berria - Gaiak

Mikel Alonsok **argi asko** dauka bere egitekoa futbolean jokatzea dela. Berria - Kirola

-Geroztik, jakin zenuen **argi asko** zer ikusten zenidan. Juan Kruz Igerabide

Nathanielek berak **argi asko** ikusi ez zuen, bada, kalesako neska letra gorriko liburu huraxe irakurtzen ari zela? Anjel Lertxundi

Emazteari, betiere, jendeak **argi asko** esaten baitzion gozamen handia izan zela senarra ezagutzea eta dibertigarria irizten ziotela oso. Mirentxu Larrañaga

Alabaina, letren sukaldari honek irudipena du Robert Blyk ez duela Peter Pan gogoan, zeren han **argi asko** esaten baitzaigu. Patxi Zubizarreta

14 *argi azkorri*

Argi **azkorrian**, soto batean, harri beltz baten aurrean lepoa egin diet zezen sakratuei. Juan Garzia

Lohi-zurrustak zipriztintzen genituen alde banatara, putzuetan barrena igarotzerakoan: argi-**azkorritan** argituriko putzu haiek. Joxe Austin Arrieta

15 *argi-babeski*

Tom-i gauean begietarako **argi-babeski** berdeak erabilarazten dizkio eta pisuekin ariketak eginarazten, eta Evari olo-morokila janarazten dio. Irene Aldasoro

16 *argi berdea eman* baimena eman.

Senatuak **argi berdea** eman dio 10.500 milioi dolar bideratzeari Katrina-k kaltetu dituen zonaldeetan laguntzeko. Berria - Harian

Parisko Dei Auzitegiak **argi berdea** eman dio Iñaki Esparza estraditatzeari. Berria - Euskal Herria

Azken urteotan etorri diren ekimen guztiei **argi berdea** eman zaie. Berria - Euskal Herria

17 *argi egile*

Eta hala bihurtu zinen ene kontzientziaren aitzindari, gidari eta **argi-egile**. Joan Mari Irigoien

18 *argi egin*

Mahai gainean ireki eta, ipurtargiarekin **argi eginaz**, miatzen hasi zen. Joxemari Urteaga

Orain, gauean, atsedenaldian, Jian-i esker, zein esku-argik urrunago **argi egin** apustuan ibil nintekeen. Juan Kruz Igerabide

Hasieran apur bat izutu nau: bere aurpegia bat-batean nire buru gainean agertu da, ezkerreko leihoko zabalgunean, eta linternaz **argi egin** du guganantz, lehen eguneko iluntzean, edo gauean agian, beste geldialdi luze batean. Urtzi Urrutikoetxea

Amorruak eraginda, gutunazala urratzekotan egon nintzen, baina eldarnio-uneetan ere bada barne-txinparta bat **argi egiten** diguna. Xabier Mendiguren Elizegi

Utz dezagun bere hilotza bakean eta ez gaitezen haren zatiak biltzen ahalegindu herriko parkeren batean harrizko irudi bat egiteko, gure bihotzetan bere obraren distirak **argi**

egiten digun bitartean behinik behin. Joxean Agirre

Musu ematen diot ahoan, luzaroan, oso luzaroan; eta oinaztuek **argi egiten** digute, trumoiak burrunba egiten du, berotasun itzelezko batek hartzen nau eta hazia isurtzen dut, Lineren kontra estu-estu eginik. Eskarne Mujika

Argi egin digu Jainko Jaunak egiaz. Egin prozesioa, abarrak eskuetan, aldarearen ertzetaraino. Elizen arteko biblia

Ilargiak **argi egiten** duen arte, ibaiek ur-isuria duen arte, / Eguzkiak Lurra berotzen duen arte, belarrak hazten jarraitzen duen arte. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ilargiak **argi egiten** zuenetan, ate hartatik eta leihoetatik sartzen zen argia nahikoa izango zen linternarik gabe ibili ahal izateko. Aitor Arana

Sumina eta originaltasuna; cocktail horrek eraman ote zuen Galois halako distira dotorez **argi egitera**? Jon Muñoz

Eta denen artean ezin zuzenduzko nahasketa haundi bat, Yvan Colonna berriz itzalerat bildu zuten ondoan eta jazko uztailaren 6eko erreferendumak garbitasun guti erakutsi eta mentura guti han zerbait **argi egiteko**. Herria

Kontu honek berak **argi egin** diezaguke, zenbateko ospatzeak egin izan diren hainbat herrialde eta lurraldetan, sutzarrak piztuz eta beste, solstiziotan bezala. Pello Zabala

Horren aurrean hartu beharreko jarreraz **argi egiteko**, Gorka Torreren gogoeta jaso dugu, berriro. Txema Ramirez de la Piscina

Ilunpetan geratu ginen, jendea isiltzen joan zen, proiektagailuak **argi egin** zuen oihalean. Anjel Lertxundi

Auskalo bertsolaritza zertan legokeen kriseilu horiek gabe, hots, besteoi **argi egitearren** haien burua erretzen dutenak gabe. Berria - Kultura

Etxera eraman nituen gurasoen mahaian izekirik egonak ziren kandela haiek, nirean ere **argi egin** zezaten. Joxan Elosegi

19 *argi egite*

Mementoz, klase ongi hezi horren eginkizun nagusia (industri) mundu berriaren desordenan **argi egitea** zen. Iñaki Mendiguren

Nik eratu zaitut eta egiteko hau ezarri: herriarentzat nire ituna berritu eta nazioei **argi egitea**. Elizen arteko biblia

Frogatu zion, halaber, bat-bateko **argi egite** edo horiek, ez direla fikziozko ikertzaile azkarren ondarea soilik, ezta idazleen asmakizunak ere, eta bai noizbehinkako erreflexu egintza berantiarrak. Migel Angel Mintegi

20 *argi-emaile*

Hiruren bat zentimetroko gorputza dute, eta intsektu **argi-emaileak** dira, are argirik gehien ematen omen duten intsektuak, edo halaxe dute fama, bederen, soin-enborraren bi aldeetan argia ematen duten bi organo dituztelako, baita beste bat ere, abdomenaren azpiko aldean. Jon Alonso

Eguna ez da oraino arras jaikia iduriz, kanpoko **argi-emaile** artifizialak baitu bere argia botatzen. Filipe Bidart

Leihatila aldetik iduri luke eguna argitzen ari dela... **argi-emaile** artifizialetik iguzki argi naturalera ari da aldatzen. Filipe Bidart

Eguna ez da oraino arras jaikia iduriz, kanpoko **argi-emaile** artifizialak baitu bere argia botatzen. Herria

Non sortzen ziren kolore haiek? Nola zeuden osatuak? Ez zuten ematen argazkien "barnean" edo **argi-emaileetan** beretan sortuak. Xabier Olarra

Paretan, eskuin aldera, bonbilla bat, ororen **argi-emaile** xuhurra. Aingeru Epaltza

Hona hemen "Espíritu colectivo" atalaren amaiera aipatu Hiztegian, **argi-emaile** ezin hobea honezkero Espainian dabilen "Volksgeistaren" kontzeptuaz, Herder edo Hegel-engandik mila legoatara. Joxe Azurmendi

Zazpi mendez izango zen Alexandria munduko bazter horretako buru-jardunaren **argi-emaile** eta bide-erakusle. Jon Muñoz

21 *argi eman*

Pinuek, enborretik adabururaino sugarretan, **argi ematen** zioten oparo eszenari. Karlos Zabala

Eta maniobraburua etorri zen eta nik soingainekoko sakelatik aparatu hura atera nuen, linternaz **argi eman** nion eta berak gurpiltxoak jirarazi zituen, argazkimakina bat fokatzen ariko balitz bezala. Fernando Rey

Espainiako hedabideentzat ere Jokin Z. zena, abizena **argi ematea** erabaki denetik, Jokin C.L. bihurtu da egunkari abertzale batean. Iñigo Aranbarri

Erregina, jakinean ala ezjakinean, **argi ematen** ari zitzaion Garrüzeko kapitainordeak bizi zuen ilunari. Aingeru Epaltza

Bizpahiru gizon eskapatu omen ziren aire eta **argi ematen** zigun leiho ttipi alanbre ziztadunez hetsitik. Marzel Etxehandi

Era horretara ibai suz jantzi hau baizik ez zen ikusten bi mendi zuri haien artean; eta han goian, nire buru gainean, ilargi handi, bete, zabal bat hedatzen zen, zeru urdinkara esnezko baten erdian **argi ematen**. Josu Zabaleta

Izarrek **argi ematen** badute. Berria - Kultura

Eusko komunistei eta komunista errepublikano espainolei espiatzeko kontsigna **argi eman** zenean -1944 aldera- Euzko Zerbitzuetako askok zerbitzuari uko egin zioten. Edorta Jimenez

Itsasokoei **argi ematen** zien dorre haren urteen kontua egitean. Edorta Jimenez

Badago Unamuno-ren gutun bat zenbait kazetari katalani, asko ezagutzen ez dena, eta **argi eman** lezakeena haren motiboei buruz. Joxe Azurmendi

Eta horrek **argi ematen** du. Berria - Euskal Herria

22 *argi-energia*

Argi-fluxua gauza batek emititzen edo islatzen duen **argi-energiaren** kopurua da; lumen-etan adierazten da (laburdura: lm). Josu Zabaleta

23 *argi-errainu*

Herostratos han ageri zen **argi-errainuan** zut, gauaren erdian bere izena aldarrikatzen. Juan Garzia

Goraxeagotik, gezileiho luzexka eta meharretatik, **argi-errainu** estuak sartzen ziren ziegaren hondoraino. Fernando Rey

Eguneko lehenengo **argi errainuekin** batera, masta nagusia sendotu genuen. Edorta Jimenez

Baina aldian behin sugar gorrixkek ontziaren tximini gaina betetzen zuten kearen kiribilen artetik, eta orduan txinpartak talde hartan zehar igarotzen zirela ematen zuen, **argi errainu** batek milaka xafla txiki dirdaitsu piztu izan balitu bezala. Karlos Zabala

Hitz bakoitzak izan dezala berezko argia, izan dadila **argi errainu** bat hitz bakoitza, loturak ahantzita. Berria - Kultura

Presondegian dagoena bezala, jira eta bira dabil bere gelan, non aurkituko irtenbide bat, **argi-errainu** bat. Juan Garzia

Dylanek ez zuen garbi ikusi; tarteka biragune sakonen batetik ihesitako **argi errainuak**. Pako Aristi

Telebistaren **argi errainuek** dir-dir egiten zuten egongelaren ilunean, urrunean entzuten hasia zen sirena hotsaren efektua indartuz. Unai Iturriaga

Argi-errainuaren bihotzean, hauts-izpiak airean zabuka. Anjel Lertxundi

Barraraino iristen zen **argi-errainu** azkar batek itsutu egiten ninduen ia-ia. Txillardegi

Ganbaratxoan, **argi-errainu** batzuk sartzen ziren teila artetik eta hormako arrailduretatik. Juan Kruz Igerabide

24 *argi espektro* *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)*

Horiekin batera, kolorezko iragazkiek jasotako **argi espektroak** biltzen ditu OPOk. ETC-prentsa

Geroago tenperatura baxuagoetan igortzen dituzte, **argi espektroaren** tarte infragorrian ia-ia. ETC-prentsa

Badaude nebulosa gaseosoak: haien **argi-espektroa** aztertuta, arrarotutako gasez osatuta daudela ikusten da. ETC-literatura, saiakera

Gorria eta morea **argi-espektroaren** mugak ote ziren, ala giza begiarenak baizik ez, galdera horri 1800. urtean erantzun zitzaion. ETC-literatura, saiakera

Ohiko kolore-iragazkien materialek **argi-espektroaren** parte bat xurgatzen dute, eta gainerakoaren zati txiki batek besterik ez du iragazkia zeharkatzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erraz ikus daiteke hori bakterio fototrofiko mugikorrak dituen porta baten gainean **argi-espektroa proiektatuta**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erradiazioaren portaera atmosferan, baina, oso desberdina da **argi-espektroan** -eguzkiaren erradiazioa- eta espektro infragorrian -Lurrak espaziora igortzen duen erradiazioa-. ETC-zientzia, zuzenbidea

Goritasun-lanpararen **argi-espektroa** arratseko argi naturalaren antzekoa da, hau da, argiaren koloreak nahiko orekatuta aurkitzen dira argi gorriaren osagai gehiago duten arren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste animalia espezie batzuen begiek guk ikuskatzen dugunaren **argi espektro** arras desberdina daukate. ETC-entziklopedia

Bere egitekoa Saturnori, haren eraztunei eta haren sateliteei argazkiak egitea da, eta beren eremu magnetikoa, **argi espektroa** eta atmosfera analizatzea. ETC-

entziklopedia

25 *argi eta garbi* adlag

Argi eta garbi hitz egingo diat. Migel Angel Mintegi

Argi eta garbi ikusten nuen Emmaren eta ene artean leize bat bazegoela. Daniel Landart

Argi eta garbi erakutsi dute Euskaldunek bakea nahi dutela. Herria

Argi eta garbi azalduko dizut nire izpirituaren egoera. Josu Zabaleta

Argi eta garbi galdetu nion orduan: ezkondu nahi duzu, bai ala ez? Joxe Austin Arrieta

Joanden uda bero horrek erakusten du **argi eta garbi** zeri buruz goatzin. Herria

Badator ordua, lehen esandako guztia **argi eta garbi** adieraziko dizuedana. Askoren artean

Naturak emakumea ahultasun egoera honetara kondenatu izanak **argi eta garbi** frogatzen du zein den naturaren asmoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Suspertze-proiektu hitzartu baten ondoren, **argi eta garbi** elkarren kontrako ziren politika ekonomikoen konbinazioa etorri zen. Koro Navarro

Artikulu berezi bat, *article Toubon-Lamassoure* deitua, **argi eta garbi** idatzirik dioena, frantses hizkuntza da Frantziako Errepublikaren hizkuntza. Piarres Xarriton

Aita hilik edo bizirik zegoen **argi eta garbi** jakitera joateko. Juan Kruz Igerabide

Den-dena kontatu zion, **argi eta garbi,** geldialdirik egin gabe. Karlos Zabala

Erakunde berriak erakaskuntzaz axola handia ukanen duela, hori segurtatua izan da **argi eta garbi**. Herria

26 *argi-ezkila* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Orduenak baino danda gehiago iruditu zaizkio; **argi-ezkila** izateko goizegi dirudi; meza-deia gau ilunez zentzurik gabea da. ETC-literatura, saiakera

Goizean ematen ohi dira **argi ezkilak**. ETC-literatura, saiakera

Tira, egizu plan bat, izan zaitez **argi-ezkila**, eta egizu gero beste plan bat; zeuk ikusiko duzu, ez du bakar batek ere egingo aurrera. ETC-prentsa

27 *argi-fluxu*

Argi-fluxua gauza batek emititzen edo islatzen duen argi-energiaren kopurua da; lumen-etan adierazten da (laburdura: lm). Josu Zabaleta

Era horretara, proiektatzen zen fotograma bakoitzeko, bi edo hiru aldiz eteten zen proiektorearen **argi-fluxua**. Josu Zabaleta

Gauez, jatorri artifiziala duen **argi-fluxua** intentsitate edota norabide desegokian zuzentzeak eragiten duen inpaktuari deritzo argi-kutsadura. Berria - Gaiak

28 *argi-giltza*

Zuretzat gelako **argi giltzari** ematea bezain arrunta da telebista piztu eta han norbait euskaraz entzutea. Pello Salaburu

Barruan bi **argi-giltza** egoten dira, batek goialdea argitzen du, eta hori pizten da norbaitek bere segurtasun-kutxa hartzera sartu nahi duenean. Xabier Olarra

Hiri honetako **argi-giltza** gehienek kalanbrea ematen dute. Harkaitz Cano

Gauza bera gertatzen zen arima-ongarriak zerbait azpimarratu nahi zuen guztietan, baina liburu-euskarriaren inguruetan edo lurrean ez zen **argi-giltzarik** ikusten. Anjel Lertxundi

29 *argi haste*

Lehenean eta ondoko zortzian pausa egunak balinbaziren langileria munduan baserrian ikusi ditugu **argi hastetik** ilun arte alorretan laborariak arto ereiten ari. Herria

Argi-hastean Gülbahar esna zegoen leiho ondoan. Fernando Rey

Arimak **argi-hastearekin** batean egin zion. Aingeru Epaltza

Bihar goizean berean, **argi hastean**, joanen naiz haraino, hemengo militar taldearekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Esan dezagun, horrenbeste, zerbait esateagatik, lanbro artean gaudela, egunaren **argi hastean** edo ilunabarretan sentitzen den halako bide galdu horretan, ez baitakigu gero datorrena gaua edo eguna den. Pello Salaburu

Gau guzia badoa trena eta **argi hastean** gelditzen da. Michel Oronoz

Festak **argi hasteraino** iraun zuen, eta denak akiturik baina ederki gozaturik, etxeratu ziren. Elena Touyarou

Gaur **argi hastearekin** esnatu, begiak zabaldu eta hormei begira hausnartu behar izan dut non nagoen. Joseba Sarrionandia

Argi-hastea da, dena garbi. Fernando Rey

Argi hastean denak aspalditik lekutuak dira. Aurelia Arkotxa

30 *argi ibili*

Aita komunean zegoela baliatuz **argi ibiltzeko** zer idazten zuen, esan nion. Koldo Izagirre

- **Argi ibili**, Lar. Harkaitz Cano

Luzeegi ez jarduteko badaezpada, buruz-eta oraindik **argi ibili** arren adin handia baitzuen gizonak, baina nahi nuenean azaltzeko, hantxe izango nuela zain, okerrik ezean. Xabier Mendiguren Elizegi

Hurrengo goizean, kloruroa bildu, eta xukatzen ipintzen da: eta **argi ibili** behar duzu eskuez ez ukitzeko, bestela usain desatsegin bat eransten dizu. Juan Garzia

Hik heuk ere, **argi ibili**, berehala aldegingo bide duk hemendik... Txillardegi

Ez iraultzaileen agurraz, zemaika baizik, harri kozkor bana estutuko bagenu bezala erakutsi genien ukabila: **argi ibili** gure herrira lehorreratzen bazarete. Koldo Izagirre

Gizon barea izanik ere, norbaiti modu hartan hitz egiten zionean, hobe zen **argi ibiltzea**, eta Marrok bazekien hori. Juan Kruz Igerabide

Izan ere, emaztea gorrotatu eta uzten duenak, gogorkeriaz janzten du bere burua - dio Jaunak, Israelen Jainko ahalguztidunak -. **Argi ibili**, beraz, eta ez izan desleial. Elizen arteko biblia

Baina, berriz ere, **argi ibiltzeko** arrastoa ere bai: haien aginduak zorrotzak ziren beren zorrotzean, eta ez zeuden ezertxo ere barkatzeko prest. Karlos Linazasoro

Bilboko alkate Iñaki Azkunak haren alderdiko (EAJ) lau zinegotziren etxeetako atarietan "mehatxuzko pintadak» egin dituztela salatu zuen, "lapurrak eta **argi ibili** diotenak». Berria - Euskal Herria

Behin xiringa bat ikusi zuten eta orduan eskolan kontu horiekin **argi ibiltzeko** esan zieten. Berria - Harian

Argi ibili baina! Aldez aurretik prestaturiko konplota indarrean baitago. Berria - Kirola

Bozemaileak segurik **argi ibiliko** ahal dira, halere Euskal Herriaren sozial eta kultura aintzinamenduen aldeko hautua fermuki egiteko. Herria

Amari eskutan zuen odolkia lurrera erori zitzaion hartan **argi ibili** zen Blanca, etxeko zakurra, jaki hura ahora eramateko. Xabier Etxabe

Saint-Ange Anderea: Bai; baina **argi ibil** dadila Eugeni; irudimenak gure gogoa aurreiritzietatik guztiz libre dagoenean balio digu bakarrik: aurreiritzi bakarra nahikoa da irudimena hozteko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta **argi badabil**, beste dirulaguntza bat ere eskura dezake oraindik, etxe bat eraikitzeko; eta, orduan, ukuilua utzi eta hara aldatu ahal izango dira. Oskar Arana

Norbaitek ikusi, eta Imanoli **argi ibiltzeko** esan zion. Fernando Morillo

Argi ibili. Harkaitz Cano

Argi ibili; beldurra duzu segurtasun-berme onen: odol gazteak berez diraki, ez du beharrik inoren. Juan Garzia

31 *argi ikusgai* *(corpusean ez dago; ETCn **231** agerraldi)*

Argi ikusgaia edo erradiazio ikusgaia giza-begiak ikus dezakeen espektro elektromagnetikoaren zatiko erradiazio elektromagnetikoari deritzo, nahiz eta eguneroko hizkuntzan ez dagoen **argi ikusgai** eta argiaren arteko desberdintasunik. ETC-entziklopedia

Dagoeneko gauzak ezkuta ditzakegu radar uhinetatik, baina ez dugu oraindik lortu, adibidez, arropa ikusiezin bihurtzea **argi ikusgaian**; horretarako, beharbada, argi malgua lortuko dela diote. ETC-prentsa

Arazoa da atmosferak uhin elektromagnetiko gehienak oztopatzen dituela, eta gure atmosferan espektro elektromagnetikoaren bi leiho baino ez direla irekitzen: **argi ikusgaia** eta irrati-uhinak. ETC-prentsa

Gero, eta hainbat egunez, espektro elektromagnetikoaren banda ezberdinetan talkaren ondorioak jaso dira: X izpiak, ultramoreak, **argi ikusgaia**, infragorriak eta irrati uhinak. ETC-prentsa

Argi ikusgaiaren uhin-luzeraren mailakoa edo handiagoa izan daiteke, gainera, distantzia hori. ETC-zientzia, zuzenbidea

Argi ikusgaia erradiazio elektromagnetikoaren (EMR) adibide garbi bat da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zer behar du Photobacterium organismoak **argi ikusgaia** igortzeko? ETC-zientzia, zuzenbidea

Erasotzen dioten irradiazio-beroaren eta **argi ikusgaiaren** parte bat xurgatzeko nahaste kimiko bat duen beira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Argi ikusgaia da materiari eragin diezaiokeen erradiazio elektromagnetiko mota bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erradiazio horiek **argi ikusgaiaren** espektroan sartzen diren ezaugarriak izan ditzakete, edo begientzat ikusezinak izan daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

32 ***argi ikusgarri*** *(corpusean ez dago; ETCn **54** agerraldi)*

Uste denez, bere tamaina 14x4 kilometrokoa da, Hubble espazio teleskopioak **argi ikusgarriarekin** eta Spitzer espazio teleskopioak argi infragorriz hartutako neurrietan oinarrituta. ETC-entziklopedia

Beltza kolorerik ilunena da, **argi ikusgarriaren** absortzio edo falta osoa dela eta ematen dena. ETC-entziklopedia

Ezagutzen dugun fotosintesia konplikatua izango litzateke nano gorri batek bere erradiazio gehiena infragorrian ekoizten duelako, eta Lurrean prozesu hau **argi ikusgarriaren** menpe dago. ETC-entziklopedia

Horregatik, ezinezkoa da haren **argi ikusgarririk** behatzea. ETC-prentsa

1910era arte ez zuten jakin **argi ikusgarria** baino uhin luzera askoz ere txikiagoko uhin elektromagnetiko mota bat zirela. ETC-prentsa

Izarrek **argi ikusgarrian** emititzen dute oso beroak direlako. ETC-prentsa

Duela mende erdi, **argi ikusgarria** igortzen zuen lehen diodoa sortu zuen Nick Holonyakek: LED argia. ETC-prentsa

X izpiak fokatzea erraza ez denez, ezinezkoa da X izpien argazkiak ohiko moduan egitea: lente bat erabiliz **argi ikusgarriaz** baliatuta, edo elektroiak mikroskopio elektronikoan fokatuta. ETC-literatura, saiakera

Erabilerotariko bat telebistetako gai fosforeszenteen osagai izatea da, hala bihurtzen baita elektroi sorta azeleratu baten energia hila kolore biziko **argi ikusgarri**. ETC-zientzia, zuzenbidea

33 ***argi ikuskor*** *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Hainbeste kitzikatzen dira molekulak, non geroago erlaxatzen direnean energia **argi ikuskor** moduan igortzen baitute. ETC-entziklopedia

Termopilak erradiazio erasotzailearen intentsitatea neurtzeko erabiltzen dira, batez ere **argi ikuskorra** edo infragorria, loturak berotzen dituen bitartean, lotura hotzak bero-disipadorean aurkitzen dira. ETC-entziklopedia

Alde batetik **argi ikuskorra** dago, gure begiek nabari dezaketen uhin elektromagnetiko bakarra. ETC-entziklopedia

Dirdira hauek ez dira ikusgai giza begiarentzat, baina bai **argi ikuskorraren** espektroan infragorritik harago. ETC-prentsa

Argi ikuskorra uhin elektromagnetiko bat besterik ez da. ETC-prentsa

Irudi eta datu ezberdinak elkartuz lortu dute informazioa, besteak beste, altimetroa, **argi ikuskorra** eta argi infragorria baliatuz. ETC-prentsa

34 ***argi-ilun*** *(orobat **argi ilun** eta **argilun** g.er.) iz* argien eta itzalen arteko kontrastea.

Edonola ere, **argi-ilun** batzuk ikusten ditu alderdi horretan ere. Berria - Kultura

Azter ditzagun bada zenbait **argi-ilun**. Iñaki Heras

Ilunabarrak ez du argitzen zergatik den **argi-ilun** hau. Josu Zabaleta

Lurrean sabel gainean luze etzanda, **argi-ilun** hartan, gure gorputzak zatikatu egiten ziren, apurtu, pixkana desegin. Juan Kruz Igerabide

Joxek birritan eten du bere ibilera bizia, bidetik baztertu eta basoaren **argi-ilunak** arakatzeko. Pello Lizarralde

Gelatik lorategi bat ikusten zen, **argi-ilunen** arteko mundu koloretsu eta usaintsua, maitasuna bezain aberatsa, maitasuna bezain erakargarria, maitasuna bezain zehatzezina. Felipe Juaristi

Eta han behean izango zara zu, umea, larruz jantzia eta **argilun** arraro horretan zure aurpegiak kartoiharrizko mozorro zuria dirudiela. Joseba Sarrionandia

Orain, erromesen ganbara **argi ilun** magiko batean murgildua dago. Piarres Aintziart

Eta ezpain haiek nola irekitzen ziren, nola egiten zioten irribarre **argi ilun** hauskara azkengabeari ikusi behar izan nuenean, munduaren azken muga irudikatu nuen ene baitan. Karlos Linazasoro

Klararen etxea alderdi **argi-ilun** mestizoan zegoen, non Alde Zaharreko mendeetako herdoil goibela Zabalguneko zabor plastifikatu distirantera isurtzen den. Aingeru Epaltza

Korutik jalgitzean, ez dakit zer **argilun** efektu batek erakarri nauen eskuinerantz, sartua nintzen haren aitzinean zegoen bazterreko bortara, eta ezustean aurkitu naiz ene bizian ikusi dudan klaustrorik ederrenetarik batean. Koldo Izagirre

Gelan halako **argi-ilun** bat nagusi zen, idazmahaitxoetan piztutako estalki berdeko lanparek uxatu ez, areagotu egiten zutena. Matías Múgica

35 *irud*

Lagun horiek ez dute inolako lotsarik esateko izaki benetan zoragarria, erliebeduna, **argi-ilunak** dituena, eta oraindik deskubritzeke dagoena emakumea dela. Ana Urkiza

Pertsonaia bera ere halakoa da, anbiguoa da, **argi-ilun** asko dituena. Gure zerga-sistemaren zenbait berezitasunek, gutxitan aipatzen diren zenbait **argi-ilunek** ere merezi lukete apika arreta jartzerik. Berria - Kultura

Gai honi buruz ere bada **argi-ilun** nabarmenik. Iñaki Heras

36 ***argi-ilunetan***

Jesusek bizi eta erakusten daukun Jainkoa nola dagoen oinarritua gure munduaren barne-muinetan, gure Elizaren **argi-ilunetan**. Herria

Galdu egin nuen istorioaren hasiera, hondartzako gizona bainerabilen gogoan, zertan ari ote zen, ikaraturik guri entzuten edo trenbidearen bestaldeko **argi-ilunetan** futbolari baten modura sartu eta atera. Koro Navarro

Eszenatokia Munduko Hiriburua izango da, eszenatokiko atzealdeko **argi-ilunetan** maitasuna eta espioitza izango dira eta erdi-erdian hor izango da Philip Rawlings protagonista nagusia. Edorta Jimenez

Turista guztiak liluraturik zeuden **argi-ilunetan** agertzen zitzaizkien mirari haien aurrean, eta, arkitektura zoragarri haren opari gehiago ikustearen egarriz, iritsi ziren, azkenik, tetrapilora. Josetxo Azkona

Bide bazterrak aztertzen zituen batez ere, kriseilu koloken **argi-ilunetan** alegiazko izakiz beteak. Karlos Zabala

"Maisuaren lana", azpimarratu zuen Bellini jesus lagunak, esaldiaren **argi-ilunetan**, esaldiaren laburrean bide nabar eta zeharka indartuz eta oinarrituz giza eskuena baino ahalmen handiagoa zuen norbaitek egina zela. Felipe Juaristi

37 *argi indar* ik **argindar**.

38 ***argi infragorri***

Laserdromen laser izpiak edo **argi infragorriak** jaurtitzen dituzten armekin elkar jotzen saiatu behar dute parte-hartzaileek. Berria - Gaiak

39 ***argi-iturri***

Argi-iturri askok, gainera, zerura zuzentzen dute beren emaria, energia alferrik galduz eta ortziaren berezitasunak guztiz ezkutatuz. Berria - Gaiak

Irteerarik ez zitzaion luzera osoan inon ikusten, eta ez zen sumatzen ez zuzi ez bestelako **argi iturri** artifizialik; hala ere bazen izpi indartsuzko argi isuri bat, margolanaren osotasuna lekuz kanpokoa zirudien argitasun fantasmagoriko batez zipriztintzen zuena. Koro Navarro

John Everett Millais pintore prerrafaelista sentikorraren koadroa nuen **argi iturri**. Patziku Perurena

Lurreko leku guztiak badaude Aleph-ean, hantxe egongo dira argi guztiak, argigailu guztiak, **argi-iturri** guztiak. Juan Garzia

Esnetegi handiaren saihetsetik pasatzean behin, bidean ametsetarik nenbilela, gorrotoaz husten agian, ipularretik bat-batean bi **argi-iturri** borobil miretsi nituen. Itxaro Borda

Lokalak leihorik ez zuenez, sarrerako atea eta mostradorearen gaineko bonbilla zituen **argi-iturri** bakarrak. Anjel Lertxundi

Neguan, lau hilabetez, ez da eguzkirik ikusten zeruan, eta izarrez eta ilargiaz gain, iparreko argiak (aurora borealak) bakarrik dira **argi-iturri**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Badakizu zer egin duen inguru hauetako **argi-iturri** horietako batek? Jose Morales

Hura duk hura **argi-iturria** ! Fernando Rey

Sortaldeko hormako leiho biribil txiki bat eta ate zabaldu berria zituen **argi-iturri** bakarrak. Anjel Lertxundi

Uhartea zedarritzen zuten lau **argi iturrien** labankadek ilunbeak ebakitzen zituztela, Creac'hen maldara heldu ginen, justu tenorez, han "gauaren begiak" aiduru geneuzkala frogatzeko. Itxaro Borda

Anabasa handiko urteak ziren, lanbro arteko urteak, baina lanbro arte hartan nabarmendu ziren Txikia bezalako **argi iturri** indartsuak. Jokin Urain

40 ***argi-itzal*** *pl* argiak eta itzalak.

Argi-**itzalak** dantzatzen ari dira atalondoan. Xabier Olarra

Titaniozko alkatxofa globalaren argi **itzalak** ikusi ditut gortinen artetik. Patxi Iturritegi

Neskaren arnasaldi lasaiak bularraldeko argi-**itzalak** higitzen zituen, gora eta behera, modu akonpasatu batez. Anjel Lertxundi

Argi-**itzal** artean. Iñigo Aranbarri

XX. mendearen argi-**itzalak** eta paradoxak. Pello Salaburu

Gau-mahaiko lanpara txikiak sortzen duen argi-**itzalean** . Jokin Muñoz

Kaleko kriseiluen argi-**itzaletan** . Jon Maia

Giza izaeraren argi-**itzaletan** . Askoren artean

Filigrana gotiko argi-**itzalezko** hura. Karlos Linazasoro

41 ***argi izpi*** *(orobat **argi-izpi** eta **argizpi** g.er.)* argiaren izpia.

Teilape baten zirrikitutik egunaren **argi izpi** bat ikusi genuen arte ez ginen ausartu sarrera hesia libratzera. Josu Zabaleta

Labartzakoa zehazki ezagutzen nuen: **argi izpi** bat bederatzi segundo oro; Matxitxakokoa baino geldoxeago. Txillardegi

Begian infinitu **argi-izpi** sartzen dira, eta erpina begian duen kono bat eratzen da. Josu Zabaleta

Egunsentiko lehen **argi-izpia** agertzean ekin zioten borrokari bi gudarosteek. Elizen arteko biblia

Irudi erreala bada, **argi izpiak** marra arrunten bidez irudikatu behar da grafikoan; irudikeria hutsa denean, aldiz, puntutako marra etenen bidez. Joxerra Garzia

Argi izpiek zerua saretzen zuten, deblauki. Harkaitz Cano

Kandelen **argi izpiek** (kandela asko baitzen), horma-zulo bat argitu zuten, ordu arte ohearen habeetako baten itzal ilunean ezkutaturik geratua. Koro Navarro

Iturburu batetik (eguzkitik, adibidez) datozen **argi-izpiek** objektu hori (makila zuri bat, adibide bat jartzeagatik) jotzen dute; objektu horrek izpi horietako parte bat alde guztietarantz ispilatzen du; islatutako izpi horietako batzuk kamera iluneko zulotik barrura sartzen dira eta objektu horren irudi (itzulikatu) bat eratzen dute atzeko aldeko horman. Josu Zabaleta

Azkeneko zati garden horrek, korneak, eragiten du **argi-izpien** konbergentziaren parte gehiena. Josu Zabaleta

Euklides, geometriaren aita, optikaren (**argi-izpien** hedaketaren zientziaren) sortzaileetako bat ere izan zen. Josu Zabaleta

Itsua ez zen mugitu bere bazterretik eta hantxe harrapatu zuten leihotik, zeharka eta epel, sartu ziren lehen **argi izpiek** . Felipe Juaristi

· Beti itxirik egoten zen leiho txiki batetik, **argi izpi** ahul bat sartzen zen. Juan Kruz Igerabide

Ikusten bainuen tunelaren azkenean **argi izpi** mehe bat. Joan Mari Irigoien

Aldi berean **argi-izpi** mehe baten distira bereizi zen ilunean, eta agertu bezain azkar desagertu zen. Koro Navarro

Erantzunak eta agerpenak espero ditut, hainbat misterio estaltzen zituen oihala urratzea, **argi izpi** handi bat iluntasuna argitzen. Oskar Arana

Zerura begira nengoela, **argi-izpi** zilartsu batzuk zabaldu ziren lainoen artetik, eta, erdi itsuturik, begirada jaitsi behar izan nuen. Anjel Lertxundi

Mirariren begiek **argi izpi** distiratsua igorri zuten ezustean. Fernando Morillo

Ulia aldetik, azkenik, ezkerretara begiratuz, ozta-ozta sumatzen ziren goiztiriaren lehenengo **argi-izpiak** . Txillardegi

Urrutiko kaleetan goiztiriaren **argi-izpi** urdinak urtzen ari ziren. Lopez de Arana

Ez dago gauza atseginagorik begiak itxi eta eguzkiaren epela masailetan sentitzea baino, begien ilunbeetan harrapaturik gelditu diren **argi-izpi** galduek dir-dir egiten duten bitartean. Anjel Lertxundi

Ez zen **argi izpi** ñimiñoenik ere, soldaduen argi-botagailu saminak bakarrik ez lekukorik, ez urruneko etxe baten argirik, ez bizidun seinalerik, tutik ez esperantza ttipienaren emaiteko ere. Eneko Bidegain

-Hara zer fosil aurkitu dudan, Joanes! -erran zidan, eta leihotik sartzen ziren **argi-izpi** bakanek ditxaren iduria zizelkatu zuten haren betartean. Joan Mari Irigoien

Almirante jantziaz akordatu nintzen orduan, eta adaburuetatik barneratzen ziren **argi izpi** zilarrezkoekin batera erabaki nuen jada ez nintzela gehiago Simon Lozano izango, handik aurrera Armando Bonilla izango nintzela, eta gero gerokoak. Karlos Linazasoro

Inondik ere ez zen **argi izpirik** ikusten. Fernando Rey

Iluntasun eta nahas-mahasi hutseko, **argi-izpirik** gabeko herrialdera. Elizen arteko biblia

42 ***argi keinukari***

Neon-**argi keinukari** berdea zeukan goiko aldean. Fernando Morillo

Bide nagusia ikusmen genuela, Volvoak, **argi keinukaria** piztu gabe, bira egin zuen, bat-batean, bigarren mailako errepide batera. Aingeru Epaltza

Isun-buletinaren arabera, 150 euroko diru-zigorra ezartzen zitzaion gidariari, bai maniobra egiterakoan, **argi keinukariak** ez jartzeagatik eta bai halaber baimenduriko abiadura gehienezkoa urratzeagatik ere. Josetxo Azkona

Badakizu ez dela debekatua zure **argi-keinukarien** erabiltzea! Ramuntxo Etxeberri

43 ***argi kono*** *(orobat **argikono**)iz* argizko konoa, kono moduan zabaltzen den argia.

Hori, eta etxe aurreko farola: farol bakarra, goitik beherako **argi-kono** bat zabaltzen zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Faroen **argi-konoan** ikusgai: landare zurrun-geldiak eta lur-azaleko erro-multzo nahaspilatuak, erraien gisa distiratzen ari. Joxe Austin Arrieta

Lanpararen estalkitik ateratako **argi-konoaren** eta hormako planoaren elkartzea, hain zuzen ere. Jon Muñoz

Alexandriako itsasargiaren argi-azaoa utzirik, lanpara baten **argi-konoari** ekin zion oraingoan Ruche jaunak. Jon Muñoz

Gero ikusi nuen nola hurbiltzen ari zen azkeneko bagoia, bukaeran garita bat zuen, eta halako batean bertatik **argikono** luze bat atera zen eta ni argitu ninduen, errebolberra atera nuen eta tximistaka ikusi nuen nire azpi-azpian fusil baten kanoia. Fernando Rey

44 ***argi kontra***

Joan deneko hogei edo hogeita hamar urtean, neurobiologoek erakutsi digute beste kontu batzuk nabarmenarazteko diseinaturik dagoela begia: mugak, **argi-kontrasteak** , kolore-aldeak, eta abar. Juan Garzia

-Zinea asmatu baino lehenagotik ere, argiaren arabera eta **argi-kontrasteen** bidetik pentsatzen zituen Stendhalek eszena gogoangarrienak; oso kontuan zuen argi gehiegiak itsutu egiten duela -esan zidan Madame Beylek, haren adinari ez zegokion adore suhar batez. Anjel Lertxundi

- Billete hau zaharkiturik dago! -esan zuen, billeteetako bat **argi kontra** aztertuz-, urratu txiki batzuk dauzka; baina, tira, lagun artean ez diogu horri garrantzirik emango. Jose Morales

Baina **argi kontra** ageri dira. Josu Zabaleta

45 ***argi-koroa*** (orobat ***argikoroa*** *g.er. eta **argi koroa** g.er.) iz* argizko koroa.

Handik ordu laurdenera, han ikusten zen nola ezkerreko ezpain-margoari zegokion puntutxoak puntutxo bat izaten zirauen, nahiz eta zetaka biribil batez inguraturik egon; eskuinekoa, berriz, koloregaldurik eta dilatatzurik ageri zen, txanpon baten zabalerako **argikoroa** arrosakolore bat bihurturik. Juan Garzia

Kometaren nukleoaren osaera kimikoa, berriz, kometaren haloaren edo **argi koroaren** oso antzekoa da. Berria - Gaiak

Honaino iristen zen herriaren distira, **argi-koroa** bat baitzirudien zeru grisaren kontra. Juan Garzia

Tatariar zapata mutur-okerrak zeramatzan, eta urrezko **argi-koroa** buruaren inguruan. Gülbaharrek haitz baten gainean ikusi zuen Ahmet, haraxeago, argitzalean, **argi-koroa** batek inguratuta. Jose Morales

Gorri-gorri, Stanen aurpegia barreka ari zen hautsezko **argi-koroa** baten azpian. Lopez de Arana

Filadelfiako San Aloisio margotuko nikek lastozko kapela eta guzti, **argi-koroarik** gabe, eta eskuetan berunezko tutu bat duela, martiriorako tresna nagusia; eta ni, txiki-txikia, haren oinetan otoizka. Lopez de Arana

Handik ordu laurdenera, han ikusten zen nola ezkerreko ezpain-margoari zegokion puntutxoak puntutxo bat izaten zirauen, nahiz eta zetaka biribil batez inguraturik egon; eskuinekoa, berriz, koloregaldurik eta dilatatzurik ageri zen, txanpon baten zabalerako **argikoroa** arrosakolore bat bihurturik. Juan Garzia

46 *argi kurba* *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi)*

Astronomian **argi kurba** argizagi objektu astronomiko edo zeruko toki baten argi intentsitatearen grafikoa bat da, denboraren arabera. **Argi kurba** espektroko gune berezi edo banda fotometriko berezi batetik abiatuta egiten da. ETC-entziklopedia

Izarren **argi kurbak** dituzte, zehazki, aztergai; astroak denboran zehar marraztutako argi intentsitatearen grafikoa. ETC-prentsa

Bere **argi kurbak**, nahiko laua dena, esfera formako objektu bat dela adierazten du. ETC-entziklopedia

Bitar espektroskopikoaren **argi kurban** gertatutako bariazioak izar batetik besterako masa transferentziaren ondorio direla uste da. ETC-entziklopedia

Argi kurbak Hector oso luzea dela adierazten du, 150x300 kilometro. ETC-entziklopedia

Russell I. Durkeek eginiko **argi kurben** behaketen bidez idenfifikatu zen. ETC-entziklopedia

Bere **argi kurbaren** datuek, ilargi bat izango lukeela pentsarazi zuten. ETC-entziklopedia

Izar mota honen **argi kurbek**, aldaketa aurreikusezin bat erakusten dute zabaltasun eta periodo tarte zabal batean zehar. ETC-entziklopedia

47 *argi kutsadura*

Gauez, jatorri artifiziala duen argi-fluxua intentsitate edota norabide desegokian zuzentzeak eragiten duen inpaktuari deritzo **argi-kutsadura**. Berria - Gaiak

Argi kutsadurak fauna eta florari eragiten diola dio Alduntzinek, eta espezie askoren gizakia barne funtzio biologikoak aldatzen dituela. Berria - Gaiak

48 *argi labur*

Bikotea **argi laburraren** helmenetik kanpo gelditu zen. Anjel Lertxundi

Neguril, neguil, neguile, neguaren bihotz hilena, indargeena, **argi laburrena** esateko erabili omen zen. Pello Zabala

Guk, gure **argi laburra** itzal dadinean / Betiko gaua lo egin beharko dugu. Bernardo Atxaga

Regina emakumeen besoetan garrasika zen bitartean, Ceciliak, aparte samar, poz **argi labur** ihesle bezalako bat izan zuen bere begi errugabe gaixo haietan. Josu Zabaleta

49 *argi lerro* *(orobat **argilerro** g.er.)* argizko lerroa.

Argi lerro bat ikusi zuen hurrengo atearen oinean, eta ahotsik entzuten ote zuen gelditu zen. Koro Navarro

Pasabide buruko gelako atearen beheko zirrikitutik **argi lerro** bat kanporatzen da. Pello Lizarralde

Goizeko ordu bietan, bi **argi lerro** piztu ziren zerumuga itzaltsuan, Angararen bi ur ertzek bat egiten zuten lekuan. Karlos Zabala

Jacquesek ez baitzuen ikusten legerik behar ez zuen lanbiderik, legea mundua ulertzeko eta ordenatzeko tresna derrigorrezko baitzitzaion, **argi-lerroa** zela zeritzon ezkutuko indarrek agerikoa har ez zezaten, bizitzaren zatiak elkarren artean nahas ez zitezen. Felipe Juaristi

Bigarren labearen leherketa zerk eragin duen ez zegoen erabat **argi lerrook** idazterako orduan, nahiz eta hainbat informazio iturrik ur isuri bat jo ezbeharraren eragiletzat. Berria - Ekonomia

Geltokian barna zamatren batzuk pasatu ziren, gero aldiriko tren bat, zerbitzuko bagoiko zirrikituetatik **argilerro** bat ateratzen zen, igerilekuan neskei batzuetan bainujantzitik hankarteko bixar batzuk ateratzen zaizkien bezala, suginek ikatz palakada batzuk bota zituzten galdara azpira. Fernando Rey

50 *argi luze*

Eta, segundo eskas baten buruan, ohartzen da izkina hartatik **argi luzeak** pizturik hain zalu irten den autoa bera baino askoz ere azkarrago datorrela, hankek ez diotela erantzuten. Berria - Kultura

Autoa, poliki galgatu eta bide erdian gelditu da, motorra eta **argi luzeak** piztuta. Pello Lizarralde

Argi luzea jarraian. Fernando Morillo

Argi luzeei esker, gerezi-ondoaren ingurua egun-argiz baino hobeki agertzen zitzaigun. Daniel Landart

Hartara, norberari adinako xamurtasun zentzugabea sentituz haiengana ere (**argi luze** iraunkor hari so egin zion). Anton Garikano

51 *argi motz*

Autoko **argi motza** jarri zuen. Fernando Morillo

52 *argi-muki*

Bizi baita maitasuna den kandela izekiaren erdian / **argi-muki** moduko bat, hura moteldu nahi duena; / eta deusek ez baitirau ontasun berdin-berdinean. Juan Garzia

53 *argi mutil* ik **argimutil**.

54 *argi oilar* *(orobat **argi-oilar** eta **argioilar**)*

Argi-oilar bat, esnea bezain zuria, garezurrean tente hiru luma hori argi zituena. Jon Muñoz

Beste gauza asko ere erakusten dizkigu gure jaun Martinek, eta horien artean harrigarriena, txori asko eta askoren kantua nola den; hona ale bakan batzuk erakusgarritzat: **argi-oilarrak** pu-pu-put ("espan edo zeloan daudenean alkarri deitzeko"); enarak txotxi-txotxi ("txio berezi onekin azaltzen dute beren estuasuna ta samiña"); [...]. Iñaki Segurola

Argi oilarrak jo dute, eguna sentitu dute! Pako Aristi

Agian, izena bera litzake, **argioilarra**, sekretu horren gordelekurik xuhurrena. Patziku Perurena

Hura **argioilarra** zuan, eta ni ez izan erdi lotan egoten den katu zaharra. Pako Aristi

Eta bakarka beti, ez dut sekulan binaka edo taldeka ikusi **argioilarrik**. Patziku Perurena

55 *argi orlegi* onarpena.

Lehen Lan Kontratuari argi **orlegia** emateak ez duela ezer asko aldatzen. Berria - Ekonomia

56 *argi polarizatu* *(corpusean ez dago; ETCn **81** agerraldi)*

Oosight izeneko teknikan **argi polarizatua** erabiltzen da, zelulak momentuan bertan ikusi ahal izateko. ETC-prentsa

Iragazki polarizatzaileak argiaren (uhin elektromagnetikoaren) eremu elektrikoaren osagaietatik bat hautatzeko aukera ematen du, eta iragazitako uhin horri **argi polarizatua** esaten zaio. ETC-prentsa

Batetik aztertu nahi den eremua argiztatu egiten da eremu elektriko jakin bat duen **argi polarizatuaren** bidez eta bestetik iragazki berezi batekin dispertsatutako argia hartzeko gai den kamara digitala erabili behar da. ETC-prentsa

Argi polarizatua erabili zuen zelulen egituretan hobeto sartzeko eta haien xehetasunak zehatzago ikusteko. ETC-prentsa

Molekulen kasuan, bi aldaera simetriko horiei enantiomero deritze, eta bakoitzak **argi polarizatua** kontrako norabideetan islatzen du: batzuk eskumara eta besteak ezkerrera. ETC-prentsa

Hala, hidrolisia jasan duen sakarosa-disoluzio batek ezkerretara biraraziko du **argi polarizatua**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrek esan nahi du estereoisomero baten kristalek zein disoluzioek, **argi polarizatua** alde batera desbideratzen dutela, eta beste estereoisomeroarenek, berriz, beste aldera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Polarizatzailea izeneko polarizazio-iragazki honek, bertatik igarotzen den argia **argi polarizatu** bihurtzen du, hau da, norabide bakarrean hedatuko den argia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aktibitate optikoa dutenez **argi polarizatua** desbideratu dezakete bi norabideetan. ETC-entziklopedia

Argi polarizatua plano bakar batean bibratzen da (argi ezpolarizatua, berriz, plano guztietan), eta isomero optiko batek planoa eskuinerantz desbideratzen du, eta besteak ezkerralderantz. ETC-entziklopedia

57 ***argi-proiektore*** argia noranzko jakin batean jaurtitzen duen tresna.

Bitartean argi **proiektoreak** pizten dituzte. Urtzi Urrutikoetxea

Gauez hainbestean: zenbait zailtasunen ostean, zenbait behaztopa eta lokatzetan irristatzeren ostean, nola-hala erdiesten genuen helmuga kanpoan argi **proiektoreekin**. Urtzi Urrutikoetxea

58 ***argi puntu***

Begien arteko konbergentzia, esate baterako, sakontasunari buruzko informazio iturri izan daiteke berez; laborategian oso ongi ikusaraz daiteke nola jokatzen duen, pertsona bati, erabateko ilunpean, **argi-puntu** baten distantzia kalkulatzeko eskatuz. Josu Zabaleta

Antzinako telebistak itzaltzean ikusten den **argi puntu** txikia, hori da ikusten duguna. Berria - Kirola

Gaua aurrera eta keaz bete ahala **argi puntuetako** asko itzaltzen omen dituzte. Pako Aristi

Gangak dekorazio aberatsa zuen eta, denboraren joanaz jadanik leunduta ageri ziren haren apaindura urreztatuekin, **argi puntuz** izartuta zegoela irudi zuen. Karlos Zabala

Iluntasunetik **argi puntu** ñimiño bat agertu eta handitu egin zen. Joanes Urkixo

59 ***argi txakur*** lur gainean higitzen ikusten diren gar txikiak.

Hara eta hona zebilen, isilik, uhinak bezala, **argi-txakurrak** bezain zehaztugabe. Fernando Rey

60 ***argi-txinta*** argi izpia; egunsentia.

Laino-arte gero eta ugariagoetako **argi-txinta** horixkek lainoetako griskara zama-tsuarenekin kontrastatzen zuten, dirdai eta ubel, abailtzen ari zen arratsari halako misterio-itxura irreala emanez. Anjel Lertxundi

Argi-txintaren lehen ikarak gauaren gangan bere lekua harrapatu nahian hasi zirela. Pako Aristi

61 ***argi-uhin***

Bertsetez bertset ari zen korua, eta bertset haiek **argi-uhin** batzuk bezala iristen zitzaizkidan, neure barren iluna besarkatzen zutenak eta neure fedezko zalantzak argitzen. Joan Mari Irigoien

62 ***argi ultramore***

Kataratarengatik kristalinoa kendu eta beira argi bat jarri zaion jendeak nahikoa ondo ikusten du **argi ultramorearekin**. Irene Aldasoro

Izan ere, galaxia zaharrak baino askoz **argi ultramore** gehiago irradiatzen dute galaxia gazteek, gasetik izarrak sortzen ari direlako, etengabe. Berria - Gaiak

63 ***argi urratze***

Biharamuneko **argi-urratzean**, aldiz, behe-laino batekin iratzarri gintuen egunak. Joan Mari Irigoien

Argi-urratzearekin irten ginen etxetik. Juan Garzia

Argi urratzearen hasieran, bere buruari itzuli emanez doa eguna, etenka. Juan Garzia

Izarpean pasatzen duen lehenbiziko gaua omen du Sabeth nire besoen artean, **argi-urratzearen** zain gaudela, hotzez dardarka. Joxe Austin Arrieta

Argi urratzean jaiki eta seguru zegoen aurkituko zuela. Anton Garikano

Zenbait mende geroago lanerako **argi-urratze** uherretan aspaldian Otsabidetik partitu herritarren bat ezagutzen zuen. Itxaro Borda

64 ***argi urte*** luzera-neurria, argiak urtebetean egiten duen bidearen baliokidea.

Esne Bidea baino bi aldiz zabalagoa da M101, 170.000 **argi urte**, alderik alde. Berria - Gaiak

Planeta sistema hori Lurretik 41 **argi-urtera** dago, Kantzerren konstelazioan. Berria - Gaiak

Bi izar horiek 7.200 **argi urtera** daude. Berria - Gaiak

Eskalaren beste muturrean, gure unibertso honek gutxi gorabehera (--!) hamar mila milioi **argi-urteko** diametroa duela. Juan Garzia

65 ***argi-zirrinta*** *ipar* egunsentia.

Argi-zirrinta urratzen zenean, bizirik irauteaz oraino harrituak, ostatuetara bideratzen ziren. Itxaro Borda

Argi-zirrintan sartu dun, erdi-edana. Itxaro Borda

Sarekada bat izanen da, laster, astearteko **argi zirrintan**! Itxaro Borda

Biharamunean, **argi zirrintan**, agertu zen Istilarteko eiheran Joanes Ithurbiderekin hitz egiteko asmoz. Elena Touyarou

Argi-zirrintako heltzen ginen gain haietara. Daniel Landart

66 ***argi-zirrintatu***

Gauak **argi zirrintatzen** ziren aharrausika. Itxaro Borda

67 ***argi zodiakal*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Asteroideen hautsak eta kometetatik jariatutako materialak, Eguzkiaren argia islatzean, **argi zodiakala** sortzen du. ETC-entziklopedia

68 ***argi zulo***

Begiratu egin genuen, ostera, **argi-zulo** xume batetik sartzen zen eguzki tristearen laguntzaz. Edorta Jimenez

Epe laburrerako lanpostuak sortu dira, baina ez dugu **argi zulotik** aterako garen, edo gainbehera jarraituko dugun». Berria - Harian

Mentalki eleka segitu zuen, tristura sakonaren oihalaren **argi zuloetarik** maitasuna birla kotoitsu jazartzen zitzaiola. Itxaro Borda

Historia horretako aldi bakoitzean, argiaren estiloak osotasun-inpresio bat ematen du, eta Rembrandten margolanetako ilunetan **argi-zuloak** ikuspegi dramatiko batetik zirraragarriak diren bezala, Constableren paisaia hodeitsuak giroari dagokionez dira zirraragarriak. Josu Zabaleta

Sabaiko **argi zuloan** gora begiratuz ilargiaren adar bat ikusten zen. Edorta Jimenez

Ondoan, merkataritza gunea eraikinetako leihoen **argi zuloz** josita dago, edota ilunabarra islatzen duten beira adabakiez iltzatuta. Xabier Paya

69 ***argi-zuzi***

Haren semeari leinu bakarra utziko diot; horrela, neure egoitza izateko aukeratu nuen hirian, Jerusalemen, ene zerbitzari Davidek **argi-zuzi** bat izanen du beti nire aurrean. Elizen arteko biblia

Zuk egiten didazu argi, zuk, Jauna, ene **argi-zuzi** horrek; ene Jainko, zuk argitzen duzu nire ilunpea. Elizen arteko biblia

Predikatzen hasi zenean, pobretasunaren **argi-zuzia** ipini zien eskuetan fedearen atetik sartzen zirenei eta huraxe ezarri zuen etxearen lehen oinarritzat. Askoren artean

70 ***argia hil***

Argia hil orduko azienda izigarri hoiek lotu zaizkitak alde guzietarik asikika. Pablo Sastre

Ah! Geroztik izitzen da, **argia hiltzen** du, eta ohepean gordetzen da. Xipri Arbelbide

71 ***argia urratu***

Leon Marty eta Exkalu oihuka hasi zitzaizkion ondo lotan behar zuen jefeari, eta leihoa irekitzera zihoala ikusi zuten egunsentiaren esne-**argia urratzen** zetorren distira biziago hura. Pako Aristi

Argia urratzen hasi da, baina badirudi milaka gau bihurriren zama daramagunontzat gertaera horrek ez duela eraginik. Pako Aristi

Eldarnio-une bat izan zuan, **argia urratzen** hasten den unea, beheko erreinuko indarrak artean ere ahaltsu direnean munduan eta gizakien bihotzetan, eta gauak artean ere bre azken hasperena jaulkitzen duenean. Xabier Olarra

-Ozta-ozta hasi dik **argia urratzen** -erantzun zuen Nadiak-. Karlos Zabala

Argia urratzearekin batera abiatu nintzen harantz. Josu Zabaleta

Argia urratu aurretik lehenak izan ziren okindegian sartzen. Harkaitz Cano

Gaua oraindik sakona zen, baina **argia urratzen** sumatzen nuen. Matías Múgica

Harik eta Istrian **argia urratzen** hasi zen arte. Josu Zabaleta

Zazpietarako, muinoetan **argia urratzen** eta txakurrak higitzen hasi direlarik, amaitu dute lana. Oskar Arana

Argia urratu baino lehen, denari buruz jardun behar dut. Eskarne Mujika

72 *argien garai*

Frantziako **argien garaiko** filosofoaren ezaugarri ugari zituen Sartrek: jakin-min unibertsala, lanerako eta aferetan inplikatzeko gaitasun izugarria, kultura neurrigabea - klasikoa prestakuntzaren aldetik eta modernoa bere hautuz-, jakintza arloen arteko mugak, baita kontinente, herri eta klase sozialen artekoak ere, ezabatzeko joera agerikoa (filosofia, [...]. Monika Etxebarria

73 *argien mende*

"Argien mende" famatuaren umeek, ordea, Frantziako Estatu-Nazioaren eraikitzeko xede eder horiekin abiaturik, ez zuten izan orduan beren helburuen betetzeko astirik, beharrik! Piarres Xarriton

Horrela jokatuz, **"Argien mende"** hunek sortarazi uholdea pozoindaturik dago edo bere bidean trabaturik. Herria

74 *argira atera*

Artistak pertsonaiaren atzean ezkutatu zuen bere lana, eta balio hori **argira ateratzen** ez badugu, museoa hutsala litzateke. Berria - Kultura

La Otxoa ezagun egin zen, batez ere, Liberate! kantuarekin: "Ederra izan zen hura, askok itxaroten zuten aitzakia izan zelako armairuko ateak ireki eta **argira ateratzeko**». Berria - Euskal Herria

Gauaren isilean, bat-batean eginiko sokak erabiliz, harresiak jaitsi zituzten, eta, aldiriko etxeen hondakinetan zein sasietan ezkutaturik, eguna jaio arte itxaron zuten **argira ateratzeko**. Jon Alonso

berarekin jaitsi zen putzura eta ez zuen ahaztuta utzi presondegian; azkenik, errege-makila eskuratu zion eta menpean eduki zutenen gain agintea eman; **argira atera** zituen iraindu zutenen gezurrak eta betiko ospea eman zion berari. Elizen arteko biblia

Eskua luzatu eta eri-mamiz ferekatu nuen, zorroa hautsi eta bere eduki preziatua **argira aterako** zen momentua amets nuela. Aingeru Epaltza

Ondoren jaka berriro jantzi eta zubipetik egun **argira atera** zen eta eguna hasteko, lehenbiziko gauza egin zuen tabako denda batera sartu tabakoa erostera. Matías Mujika

Ezkutuko hura **argira atera** zitzaidan unean Ordiziara joan bezperan nengoen, Telleria madarikatuaren monumentua zartarazteko materialaren bila. Xabier Mendiguren Elizegi

mendeko lau aitasantu garbitasunaren aurkako bekatuak **argira ateratzeko** agintzen, eta ez, ostera, parrizidioa. Juan Martin Elexpuru

Arkano hauek, alabaina, ez dira egun **argira ateratzekoak**, hemendik hogeita hamar urtetsura arte baino. Juan Garzia

75 *argira ilki* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Eliz karrera egina, Juan Beriainek bi lan izkiriatu zituen XVII. mendeko bigarren hamarkadan **argira ilki** zirenak. ETC-literatura, saiakera

76 *argitan egon*

Argitan dagoen bazter batean, gero eta gertuago, itzalak dabiltza dantzan. Rafa Egiguren

Otoitz bero honetan ari zela, estasiak hartu zuen; eta basoan zeukan bere gela gainean, aingeru eta santuen gudaroste handi bat ikusi zuen, hain distira handitan, ezen bailara guztia **argitan baitzegoen**. Askoren artean

Honek begi bideak argiz bete eta lehen aire ilunak oztopatzen zuena ireki duenean, **argitan zegozen** irudiak jarraian datoz eta begiei erasotzen diete, hala ikus dezagun. Xabier Amuriza

Itzalean zeuden, bada; edo, hobeto esanda, gibel-**argitan zeuden**, baina kamelia handiaren hosto lodiek eta lore sorta oparoek sortzen zuten geruza trinkoak ez zuen uzten udaberriko eguzkia igarotzen. Ibon Uribarri

Hori helduden astelehen asteartetan, gaitzeko obra berezia ikusten ahalko ere baita itsas bazterrean, aratsetan dena **argitan egonen** dena, aroa batere alde izanez geroz segurik. Herria

Blanche, **argitan zaude**! Xabier Paya

Eguzkiaren **argitan egon**, eta ez leku hartan, egurra, ikatza, kerosenoa biltzeko egina... Anton Garikano

Argitan dagoela esan eta senideari gorroto diona ilunpetan dago oraindik. Elizen arteko biblia

Ezta eltxoen aitzakiarekin kandela baten **argitan egoteak** ere. Anjel Lertxundi

Aterpea oraino **argitan dago**, baina erromes gehienak ohean daude, batzuk irakurtzen, besteak ja loan sartuak, batto korroka aplikatu batez artatzen bezala dela. Piarres Aintziart

Hirugarrenean haatik, etxe barnea **argitan zegoen**. Daniel Landart

Pantaila denbora guztian oso **argitan zegoen**, ekintza denbora guztian eguzki galdatan gertatzen baitzen. Pedro Alberdi

Zure leihoak **argitan zeuden**, nire bihotz guztia burrunban. Eduardo Matauko

77 *argitara atera*

Dena dela, biak bizi izan ziren isilpe eta itzalpe samarrean, haien lanak ez zirelako XX. mendea arte **argitara atera**. Koldo Zuazo

Inportanteena ez dira ondorioak ere, beharbada, ezpada, etorri ahala kontzientziaren zakuan pilatzen joan naizen guztiak **argitara atera** eta ordenan paratzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Lurpeko, sakoneko, ezkutuko, itzalpeko, azalpeko, ilunpeko bizi erroen misterioa, kanpora edo **argitara ateratzea**, horratx funtsean mihurak sinbolizatzen duena. Patziku Perurena

Jainkoak, ordea, lotsagarri utzi zuen: Ahikar **argitara atera** zuen eta Nadab, berriz, betiko ilunbetara bidali, Ahikar hil nahi izan zuelako. Jose Antonio Mujika

"Lau Eskualdeetako Erresuma" sumerikoan Ur-etik gobernatzen zuten sumertar enperadoreen mende bildutako kode goiztiar bat izan zen, dirudienez, inperioa berriro ezarri zuen Babiloniako Hamurabi amorritak geroago promulgatu zuen kodearen oinarria, K.o. 1901ean Mendebaldeko arkeologo moderno J. de Morgan-ek **argitara atera** zuena. Iñaki Mendiguren

Sekretu hura ez zen **argitara ateratzen**. Pello Lizarralde

Norbait jaioarazteko modu bat baino gehiago dago, eta horietako bat da norbaiten Nilon eskua sartu, harria aur-kitu, bitan zatitu, eta bihotza **argitara ateratzea**, arimari argi egin diezaion. Juan Kruz Igerabide

Oraindik ez zen heriotza, baina jadanik ez zen bizitza; zerbait berria zen, harrigarriki ezezaguna, ez erabat zentzugabea, baina zentzuduna ere ez, eta hain sakona, misteriotsua eta gizatasunetik kanpokoa, ezen ezinezkoa baitzen **argitara ateratzea**. Jose Morales

Jakin nuen, bada, tabakontzi horien historia eroa **argitara ateratzearen** ondorioz, hain zuzen, sentitu zuela berak Gizarte Ordenaren kontrako gorrotoa. Matías Múgica

Are eskubide gehiago zeureganatuko dituzu oraino, amore emanik, nik nahi bezala, sekretua segurki gordetzeari, zeren sekretu hori **argitara ateratzeak** zuhauri eginen bailizuke kalte, eta heriotza lekarke zuk dagoeneko zauritua duzun ama baten bihotzera. Jon Muñoz

Hortaz, joko horretan ez dago merkataritzarik, ez merkaturik, eta halatan, esku ikusezina **argitara ateratzen** da erabat, korporazioaren estrategiak gidatzen duen eskua, alegia. Iñaki Heras

78 *argitara ekarri*

Badira, baina, A saileko azpieraikuntza eraginkor asko aipatu behar direnak, hainbeste oinarrizko arazo **argitara ekartzen** batituzte modu garbi batean. Itziar Laka

Judua nintzela jakin aurretik besterik uste banuen ere, ez dago zertan dena **argitara ekarri**: misterioak ere bere tokia behar du. Anjel Lertxundi

Helburutzat itxurazko jakintza hori **argitara ekartzea** eta gainditzea duen Kanten Dialektika transzendentala aldi berean ordu arteko Metafisika ororen gaitzespena da. Ibon Uribarri

Egun guztiko bizian ahanzten diren detaileak ditut **argitara ekarri** nahi, guztien detaile horiek. Berria - Kultura

Hitz egiten trebeziarik ez zuen arren, zientziaz betea zegoenez, zalantzazko arazoak erabakitzen zituen eta ezkutuko gauzak **argitara ekartzen**. Askoren artean

Nobela da huts-hutsik, nobela garbia eta bete-betea, eta gure egunetako gizaki hautsiaren errai ezkutuenak egundaino ez bezala **argitara ekartzen** dituena, eta irakurle zurtuaren bistan ezartzen ohiko estalki oroz gabeturik eta hizkuntzaren trataera harrigarri batez horniturik. Iñaki Segurola

Egia **argitara ekartzea** egia ez aldatzea da. Berria - Euskal Herria

Zuk gertaerei ere gezurra esanaraziko zenieke -gehitu nuen, hitz egokiak aurkitu izanaz pozik, azkenean zerbait **argitara ekarri** izan banu bezala. Ander Irizar

Berehala, ordea, burua altxatu zuen eta bi esku irekiez harturik, batak kiribilduratik, botoitik besteak, biolina **argitara ekarri** zuen. Felipe Juaristi

Ostera **argitara dakartza**, iragananaren ilunpe luzetik, gizakiaren larriminean erroturiko zenbait mito. Juan Garzia

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak eta Udalbiltzak benetan izan nahi badu zerbait egin beharko dute Espainiarentzat ikusezinak direnak **argitara ekartzeko**. Berria - Harian

79 *argitara eman*

Julio Cortázarrek berak Pedro Salinas idazlearen poesiaren antologia bat atondu eta **argitara eman** zuen. Imanol Zurutuza

Har dezagun, esaterako, gure idazleak 1930. hamarkadan Buenos Airesko egunkari batean **argitara eman** zuen zutabea, honelaxe itzuli duguna. Iban Zaldua

Erregek, halere, ezbeharretik gorde nahi izan zuen bere alaba maitea, eta agiri bat **argitara eman** zuen herrialdeko goru guztien suntsipena ordenatuz. Iban Zaldua

Sémion Lipkine adiskide minari bidali zion ea **argitara eman** ote zezakeen jakin nahian. Felipe Juaristi

Bidea trabarik gabe eginez gero, **argitara emango** dute aurtengo urte bukaeran eta, beraz, litekeena da behin betiko onarpena 2005eko maiatzean izatea. Berria - Euskal Herria

Lau urtean 23 zenbaki (1.200 orrialde), sei liburu eta bi CD **argitara eman** ondoren, ez dela berriz plazaratuko iragarri du. Berria - Kultura

International Crisis Group erakundeak epe luzera egonkorra izango den irtenbide bakarra independentzia dela dio **argitara eman** berri duen txosten batean. Berria - Mundua

Elkarrekin ari ginen, eta alferrikakoa zen orain ezkutatzea gero **argitara emanen** nituen datuak. Aingeru Epaltza

Biharamunean, zuzenketa **argitara eman** behar izan zuten, orrialde baten bazter-bazterrean eta letra txikiz: "atzo zina genion lekuan ezina behar zuen". Joxerra Garzia

Aristotelesekin etsiak hartuta, Tuzidides jakintsuaren baitan aurkitu zuen beti gustuko izango zituen literatur estiloa eta giza historia eta giza abentura ikusteko modua (haren Peloponesoko Gerra itzuli eta **argitara eman** zuen 1628an). Esteban Antxustegi

Tartagliaren liburuko lehenengo gurutzearen atzean zegoen pasarteak zioenez, Boloniako matematika-irakasle batek urratu zuen lehenik bide hura; Scipione del Ferro zeritzan, eta hirugarren mailako ekuazioaren ebazpen batzuk aurkitzea lortu zuen, baina, **argitara eman** ordez, ezkutuan gorde zituen ebazpenak. Jon Muñoz

Eskua zulo ilunean sartu, eta atera nuen lehena, Hoffenmeyerena izan zen, idazle austriarrak Erdi Aroko gerlariei buruz idatzi zuen liburu zahar hura alegia, 1844an Leipzigen **argitara emana**. Aritz Gorrotxategi

Merezi luke egutegi berexi hau irudikatu eta **argitara emateak**. Pello Zabala

Orobat, misterioa da zergatik agertu den irudi hori orain **argitara ematen** dugun poema honetan. Jose Morales

Inbidia sumatu nuen, entzuten ez diren elkarrizketek betiere eman didaten inbidia, badirudielako sekreturen bat **argitara ematen** ari dela, eta elkarrizketak duen ustezko garrantzi horrek lekuz kanpo bezala utzi ohi nau. Lander Garro

2001-10-16: Urtegian agertutako pitzaduren berri ematen duen txostena, obrako ingeniariek egina, **argitara ematen** du Itoizko Koordinakundeak. Edurne Elizondo

80 ***argitara ilki*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Capistouren Guide du voyageur dans la province basque du Guipuzcoa avec carte et vocabulaire franco-basque genuke, 1877.ean Baionako Etxegarai karrikan zegoen Lamagnéreren etxean **argitara ilki** zena. ETC-literatura, saiakera

81 ***argitara irten***

Orain, ordea, zer bakoitza, hazi jakinetik datorrenez gero, bakoitzaren materia eta lehen gorputzak dagozen lekuan bertan jaiotzen eta **argitara irteten** da. Xabier Amuriza

Ordu batzuez bederen ilunbetik **argitara irten** nahi dute, eta ahalegin horretan halako grinak bultzatzen ditu, ezen oinazea eta plazerra beti batera iristen zaizkie halabeharrez. Berria - Kultura

Harry, ikusezintasun-kaparen azpian erabat gordeta, eguzki-**argitara irten** zen Honeydukesen kanpoko aldean, eta Roni ukondoko bat eman zion bizkarrean. Iñaki Mendiguren

Itsasoaren izotz larrua zulatu eta **argitara irten** ondoren merezi duen eguzkialdia gozatzen egongo da lasai asko. Joseba Sarrionandia

Tontorra mehe-mehe estalita geratu zenean, Jacken aurpegia ilunpetan geratu zen, baina berriro suari haizea ematen hasi zenean, beste aldeko horman gora agertu zen haren errainu kukubilkatua, eta, aurpegia ere, poliki-poliki, **argitara irten** zen berriro. Irene Aldasoro

82 ***arima argi***

Nola nahiko nukeen nik berriro sentitu kanposantuko horma ondotik igarotzean atso xaharrei aitaren eginarazten dien, edota aztikeriatan sinesten duten azkenak paduretako lurrin harrigarrietatik eta **arima-argi** iheskorretatik ihes egitera behartzen dituen larritasun haren hotzikara! Josu Zabaleta

83 ***arrazoimenaren argi***

Eta Holandaz maitemindu zen, han haize-errota mordoa baitago, baita bonbillen argiaganako begirunea ere, **arrazoimenaren argitzat** hartua. Fernando Rey

Lege idatzi baten bidez, ordu arte sakabanatuta zegoena testu bakar batean jartzekoa zen, gizabanakoaren adimen eta **arrazoimenaren argitan**, aro berriari zegozkion lege zibil berriak egokiro eho eta mamituak. Andres Urrutia

84 ***auto-argi***

Egongela beheko solairuan eta etxeko atariaren ondoan zegoenez, une hartan aipatutako gelan isilik zeuden lau pertsonek ondo baino hobeto ikusi zuten leihotik sartuta beraienganaino iritsi zen **auto-argia**. Aitor Arana

85 ***balazta-argi*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Pintura brotxakadak dira autoen **balazta-argi** gorriak, txirristatik behera doazen elastiko urdin eta berdeak, kulunkan dabilen neskatoaren soineko zuria... ETC-literatura, saiakera

Nahiz eta zirkulazioko gorabeherek behartuta egin behar izan hori, ahal den guztietan, adierazi egin behar da, behin eta berriz **balazta-argiak** erabiliz, edo mugimendu labur eta azkarrez besoa goitik behera mugituz. ETC-zientzia, zuzenbidea

86 ***begi-argi*** *(orobat **begiargi**) izond* begiak argiak dituena.

Neska **begi-argiak**, sofan lirain eta tente eserita, irribarre distiratsua egin zion mutilari. Mirentxu Larrañaga

Artean mutil ederra baitzen Emmanuel, mehea eta garaia, bizartsua eta **begi-argia**. Joan Mari Irigoien

Eta obligazioa nuen bezala nire nagusi **begi-argi** harengana joan nintzen. Matías Múgica

Bizarduna sartu zen hartatik, bata txuriz jantziriko emakume **begi-argi**, gerri-lodi bat ari zitzaion. Pablo Sastre

Hoteletan ere, ez harritu arrastari **begiargi** horietako bat agur egitera etortzen bazaizu. Gotzon Garate

· *(adizlagun gisa)* Neure buruari jaikitze beretik ezarritako gidoiari atxiki nintzaion: **begi-argi** eta adiskidetsu beti, elkarrekin gosaldu ondoan etxeko atean musu eman eta "gero arte" batez agurtu banu bezala. Aingeru Epaltza

87 ***begietako argi***

Udatzenean dago, ordea, Goyaren itsua, ilunabarrean, zeruko argitasun epela munduan itzaltzera datorreneko zahartzaro xuhurrean, eta bi **begietako argia** burura bildu zaiola dirudi. Patziku Perurena

Spelloko itsu batek ere gorputz santuaren hilobi aurrean berraurkitu zuen aspalditik galdua zuen **begietako argia**. Askoren artean

Huts egin didate indarrek, alde egin dit **begietako argiak** ere.

Orain, berriz, nire ahizpak bakarrik utzi nau eta alde egin dit **begietako argiak**. Askoren artean

Izan ere, umezurtz gelditu gara, aitarik gabe, eta geure **begietako argirik** gabe. Askoren artean

Ni pozik nengoen Adaren **begietako argi** hura eragin nuelako. Anjel Lertxundi

88 *buru argi* ik **buruargi**.

89 ***buruko argi***

Eta berriro iraungi zitzaidan **buruko argia** eta berriro ikusi nuen neure burua osin hondargabe baten aitzinean... Joan Mari Irigoien

-Arrunt zurekin nago, Santxo, denetik badakizu -dukeak erantzun-; gobernadore ona izango zara, zure **buruko argiak** agertzen duen bezalakoxea; eta, hemen geldi dadila hau, bihar bertan joan behar duzu uharteko gobernamendura eta harako behar dituzun janzkera eta gainerako gauza guztiak gaur arratsaldean emango dizkizute. Patxi Ezkiaga

-Ai, Eneko, ni izango nauzu aurrerantzean zure bihotzeko garra, zure **buruko argia** ... baita zure ile-moztailea ere, nahi baduzu...! Joan Mari Irigoien

Izan ere, jakituria eta gizatasuna ez baitira jatorkeria batzuk asmatu eta taigabe haiek predikatuz umotzen, **buruko argi** guziak itzali arte nork bere ikerlan eszeptikoan segituz baizik. Patziku Perurena

90 ***buztangorri argi*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Buztangorri argia ("Phoenicurus phoenicurus") Muscicapidae familiako hegazti paseriformea da, erdialde Europan eta mendebaldeko Asian bizi dena. ETC-entziklopedia

Bertan aurki daitezkeen animalien artean **buztangorri argiak**, aztoreak, zapelatz listorjaleak, basakatuak, ipurtatsak eta lepahoriak daude, besteak beste. ETC-prentsa

91 ***egun-argi*** *(orobat **eguargi** g.er. eta **egunargi** g.er.)* *iz* eguzkiak ematen duen argia.

Goretsia zu, ene Jauna, zeure sorkari guztiekin, batez ere anaia eguzki jaunarekin: bera da **egun-argia** eta berarekin diguzu egiten argi. Elizen arteko biblia

Kupulari eta beira-leihoei begira zegoen Max, handik sartzen baitzen **egun-argia**. Jon Muñoz

Egun argia baino lehentxeago jaiki nintzen. Juan Garzia

Udan, 19 orduz **egun argia** izaten da eta neguan 6 orduz bakarrik. Berria - Mundua

Gauaren ilunpe itsuan eguzkia eta **egun argia** ikusi uste ditugu eta. Xabier Amuriza

Gure arbasoek bazuten behar adina denbora **egun-argia** joan ahala beren defentsak egokitzeko. Irene Aldasoro

Egun argia bizitzeko dela esaten zuen, gauzak egiteko; iluntzea, berriz, bizi izandakoa kontatzeko. Unai Elorriaga

Orduan eguzkia eta **egun-argia**, izarrak eta ilargia ilundu egingo zaizkik. Elizen arteko biblia

Ezin da aldi berean gaua eta **egunargia** izan. Imanol Unzurrunzaga

Egun-argia bera ere argitsuegi zitzaion, distiratsuegi; argi motelduagoetan hobeto ikusten zuela ohartzen zen. Xabier Olarra

Leihatilak ez du pasatzera uzten **egun argirik** aski, hain da gora eta barna eta alde guzietarik hetsia. Filipe Bidart

Egun hartan, eguerdi betean sarraraziko dut eguzkia, eta **egun-argitan** ilunduko dut lurra. Elizen arteko biblia

Egun argitan ez nituelakoan gaueko larritasunak hain beltz gogoratuko, gaua bertan egitea deliberatu nuen. Anjel Lertxundi

Ondoko egunetan ohartuko naiz **egun argiz** ere ez dela argi handirik sartzen zeldan leihatila horretarik. Filipe Bidart

-Plazan eta **egun argiz**, hori ez duk dantza egitea. Koldo Izagirre

Egun-argiz amets egitea osasungarri izaten omen da. Iñaki Zabaleta

Egun-argizko olatu bat sartu zen. Josu Zabaleta

Egun-argitik gauerako bitartea ez da izaten ordu erdi baino gutxiagokoa. Irene Aldasoro

Egun-argi grisa sartzen zen leihotik. Iñaki Zabaleta

Konturatu zen hobeto ikusten zuela argi motelduaz edo ilunabarrez, ezen ez **egun-argi** betean. Xabier Olarra

Giza misterioen iluntasunean hobeto ikusten dut / gauza jakinen **egun-argitan** baino. Pako Aristi

Egun argi zen, baina Ateneak gaua jarri zien gainean eta hiritik kanpora eraman zituen. Juan Kruz Igerabide

92 ***egun argiz***

Badaki Joanesek behin eta berriz kurritu zituela bazter haiek, oinez, **egun argiz**. Eneko Bidegain

Ordaina emateko, Patham familiak Ibrahimen oso lagun zen Iqbal Natik kazetaria kale gorrian eta **egun argiz** garbitu zuen. Gotzon Garate

Argi luzeei esker, gerezi-ondoaren ingurua **egun-argiz** baino hobeki agertzen zitzaigun. Daniel Landart

Gau-ilunez esaten dizuedana, esan zuek **egun-argiz**; eta belarrira entzuten duzuena, hots egin etxe gainetatik. Elizen arteko biblia

Kanpandorreko harrizko eskaileretan gora, berriz, dorrearen buruko kanpailekura heltzen zen, eta han goitik Aizpea kokaturik zegoen mendilepoaren ikuspegi ederraz goza zitekeen **egun argiz**. Aitor Arana

Egun argiz xarmagarria izaten zekien arren, munstro bilakatzen zen eguzkia sartaldean kukutu orduko. Xabier Montoia

Jakin bazekien **egun argiz** erasotzen zietela pertsonei, eguzkiaren argitan atakatzen zituztela maskaradunek etxeak, emakumeak bortxatu ere egiten zituztela. Bego Montorio

Bilkuretara joateko bidaiak **egun argiz** egiten nituen, ekia begietan eta ertzeko belar usain gatibatzaileak sudur mazeletan kilikari. Itxaro Borda

Egun-argiz etxera iristea jadanik ezinezkoa bazen ere, gutxienez Landetako errepide zuzen amaigabeek soraiotu baino lehenago litzatekeela zuhurrena. Txillardegi

93 ***eguzki argi*** *(orobat **eguzkiargi** g.er.)*

Orduan, **eguzki argia** zeharka iristen zaio ilargiari eta gorriz tindatzen da. Berria - Gaiak

Eguzki argiak -paretetako poroetan barrena, antza- argiz blaitzen zuen gela. Matías Múgica

Jakina zen, agerikoa zen, **eguzki argia** bezain ziurra. Felipe Juaristi

Ez dute kriseilu-argirik, ez **eguzki-argirik** beharko, Jainko Jaunak egingo baitie argi. Elizen arteko biblia

Kriseilu argia **eguzki-argiarekin** konparatzea bezala izango litzateke. Joan Mari Lekuona

Aurpegia lasai ageri du egunsentiaren **eguzki argitan**. Xabier Paya

Hantxe buruz gora etzanda geundelarik goizeko **eguzki-argitan**, Pete agondu egin zen bat-batean. Irribarre egitera zihoakidanean etorri zitunan azalik gabeko gizonak eta igo gintiztenan **eguzki-argitara** hildakoengana eta bultzatu zitiztenan itsasora. Mirentxu Larrañaga

Laino artetik iragazten zen **eguzki-argi** doian bilduta, auzoak geruza sepia kolore bat zuen, iraganarena, haurtzaroarena, oroimenena. Anjel Lertxundi

Larre-pentzeak zehar-argitan, sarale-metak **eguzki-argitan** gorri. Joxe Austin Arrieta

Eguzki-argi zerrenda bati barneratzen uzten zion pertsiana berdearen arraildurara. Lopez de Arana

Aipagarri dira, besteak beste, airearen kalitatea, **eguzki-argi** orduak, paisaia edo aisia. Iñaki Heras

94 ***esku-argi*** *(orobat **esku argi** g.er.)* eskuko argia.

Ohetik salto egin, jantzi, **esku-argi** bat hartu eta baratzera irten dira. Itziar Otegi

Esku-argi bat zeraman esku batean eta zerbaiten poto bat bestean. Koro Navarro

Batzuetan, zenbait ehiztari gauez irteten zen ehizara, **esku-argi** eta guzti, oilagorrak argira hurbiltzen baitziren. Juan Kruz Igerabide

Esku-argia hartu eta putzua argitu zuen. Koro Navarro

Barrura sartuta, leihatila itxi nuen, neurekin neraman **esku-argia** piztu, gainaldean eskua ipini, lurrera baino argi egin ez zezan, eta eskailerara joan nintzen; **esku-argia** itzalita, ilunpetan igo nintzen ganbaratxora, pauso bakoitza ondo bermatuz, maila bakoitzaren sendotasuna ziurtatu eta gero. Juan Kruz Igerabide

Arrosondoen azpira zuzendu zuen **esku-argia**. Koro Navarro

Argitu baino lehen esnatu, modu berezian jantzi, gainerako goizetan ez bezala, arropa egoki eta ongi hautatuak jantzi, beste modu batean gosaldu, uxual kopatxoaz bihotza bizkortu, eta **esku-argi** batez argiturik jangelan haragi hotza jaten duk. Xabier Olarra

Esku-argiaren foku hotzak gelako altzariak azaldu zizkidan. Alberto Ladron Arana

Ikusten ote zen kanpotik **esku-argiaren** errainurik? Juan Kruz Igerabide

Esku-argiarekin lurra argitu zuen. Koro Navarro

Esku-argi luxe batekin, ridgeback eta txakalaren nahasketa dirudien txakur gazte baten eztarria ari da miatzen. Oskar Arana

Esku-argi elektriko batek argitu gintuen, goitik behera; gero, barre-zantzo handi bat entzun genuen. Juan Kruz Igerabide

Norbaitek zapeta eta **esku argia** galduak zituen! Herria

95 *esneki argi* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Esneki argia ("Lactarius pallidus") Russulaceae familiako onddo bat da. ETC-entziklopedia

96 *ezko-argi*

Elizaren barnean begiak alha zeuzkan, hemen **ezko-argiak**, han bitrail koloretsua, hantxe oraino orgina erraldoiaren metalezko hodiak. Itxaro Borda

Itzala gure gainera makurtzen zen eta sotanaren hegalek, elizako **ezko argiak** gordetzen zizkigutela, arras galdua ginelako irudia geneukan. Itxaro Borda

Barnean **ezko argiaren** pizteko supizteko bat eta kandela puska belztu zenbait baziren, baina besterik deus ez. Elena Touyarou

Ordu berantetara arte, han entzun zen oskigilearen ahots barea laudorio-kantari, bere **ezko-argiaz** poz-pozik hura, lagunaren malkoak xukatzen. Juan Garzia

97 *gau-argi*

Etxean banaketa izan zenean, Dublingo **gau-argia** arropa-garbitegiko postu hori aurkitu zioten mutilek, eta bera pozik zegoen han. Irene Aldasoro

Ez da ohartzen **gau-argien** itzaltze hori egunaren itzuleraren seinale dela. Iñaki Mendiguren

98 *goi argi*

Une hartan, **goi**-argiaren eraginagatik-edo, oilarrak berde-berdea zirudien. Joan Mari Irigoien

ik goiargi.

99 *goiz-argi* *(ETCn **78** agerraldi; orobat **goizargi** ETCn **21**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **goiz-argi**)* egunsentia. ik **goizargi**.

Biharamunean, **goiz-argiarekin**, agurtu eta astoak hartuta bidean jarri ziren gizonak. Jose Antonio Mujika

Bidean barrena zihoazela, udaberriko **goiz-argian**, orein bat ikusi zuen urrutiko galsoro bat zeharkatzen, eta anaiari seinalatu zion, hatzaz. Imanol Zurutuza

Mikel ez zen egunederzalea, baina udazkeneko **goiz argi** batek edonoren bihotza hunki lezake. Unai Iturriaga

Uda hasierako igande **goiz argi** bat zen: beroa agintzen zuen, baina bazebilen haizeño fresko bat ere. Irene Aldasoro

Abuztuko **goiz argi** haietan Kalaportuko mutikoek etxetik alde egin eta Juan Bautistaren aitaren batela edo besteren bat harturik sartzen ziren itsasora, ateko bandarantz urrundu ez arren. Joseba Sarrionandia

100 *ile-argi* *(orobat **ileargi** g.er.)* *izond* ilea argia duena.

Azal horaileko gizon **ile argi** bat. Lopez de Arana

Gazte **ileargi,** muxugarbi bat zen Kruz Lete, fina esaten zaien horietakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiru neska, **ile-argiak** hirurak, galtza motz zuriez jantzita, jaitsi ziren arroken aldetik besotik helduta. Kirgizak, **ile-argiak,** Enba ibaiaren bazterretatik ekarriak. Koro Navarro

101 *ilun-argi* *iz*

Kolorea, jakina, baina baita kontrastea ere: **ilun**-argia beti erabili izan da zirrara bortitzak eragiteko. Josu Zabaleta

· Zelda hartako **ilun**-argian. Matías Múgica

Begiak pixkanaka ohitu zitzaizkion gelako **ilun**-argira. Ibon Uribarri

102 *itzal-argi* *(orobat **itzalargi**)* *pl* itzalak eta argiak.

Kandelaren garrak dardar egin du, eta harekin batera aretoko **itzal-argiek**. Pello Lizarralde

Zoriona **itzal-argizkoa** da. Ana Urkiza

Etchevarriaren tresna arruntak barna, barneneraino, kasik ezin helduraino sartzen dira **itzal-argi** jokoetan begia eta gogoa haziz, bere sena guzia eman diola egin duenari. Herria

Arantza Aranaren gorputz soslaia **itzalargitan** ikusi zuten, zutik jarritako Tour-eko etapa menditsu baten mapa orografikoa bailitzan. Berria - Kultura

Mutil handiago batzuk han ari ziren dantzan, neskaren bati estu loturik, isilean, aurpegia gorrituta eta izerditurik **itzalargietan**. Joseba Sarrionandia

103 *kale-argi*

Izan ere, **kale-argiek** edo farolek behar baino argi gehiago egiten dute, eta ez dute gainera behar bezala argiztatzen. Berria - Gaiak

Bat izan ziren Volvo muturrandi urdina bistatzea eta neure burua **kale-argiek** ahantzitako zoko baten itzalpeari eskaintzea. Aingeru Epaltza

Lehenbiziko aste horietan (operazioa egin eta gero) ez nintzen jabetzen sakontasunaz eta distantziaz; **kale-argiak**, esaterako, kristaletan itsatsitako orban argitsuak iruditzen zitzaizkidan, eta erietxeko pasabideak, berriz, zulo beltzak. Xabier Olarra

Neath, Bridgend, Bristol, Newport, haien aintzira eta lorategi luxuzkoez, tentazioez gainezka egoten ziren **kale argitsu** koloretsuez. Koro Navarro

Ezagunak zituen Durant jaunak; beraren etxetik hiru ate beherago bizi ziren, **kale-argia** aurrez aurre zuen etxean. Mirentxu Larrañaga

Kale-argi bat jo du, eta, ondoren, aparkalekuan ziren autoak. Berria - Euskal Herria

Diru publikoa eskasa baitzen, **kale-argi** arras guti bazen. Ramuntxo Etxeberri

Iduritzen zitzaidan **kale-argiek** aski ilun uzten zidatela ezagutua ez nendin izan. Piarres Aintziart

Hurbileneko **kale-argia** itzali egin zen eztanda txiki batekin. Iñaki Mendiguren

Kantoiko **kale-argiaren** azpian gelditu ziren. Koro Navarro

Harekin hizketan ari zela agertu zitzaion berriro aurrean Stanislaus Demba, beragandik pauso bakar batzuetara, gasezko **kale-argi** baten kontra jarrita, etengabe berari begira. Anton Garikano

Iparraldera zuzenean abiatu ordez, Sena bazterretik joan zen 404a, eta Concorde plazara lerratu, **kale-argiak** pizten ziren unean. Jon Muñoz

104 *kamera argi* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Izan ote liteke, **kamera argi** baten laguntzaz, lehen eserialdian hazpegi nagusiak markatu izana, eta behin hauek jarrita, aurpegia leun eta dotore lantzea, modeloa aurrean ez zuela? ETC-prentsa

Kamera argi iturriren baterantz begira jarriz gero, argi lerro batzuk sortzen ziren. ETC-prentsa

Kasu horretan, **kamera-argi** txiki bat eta mikrofono bat erants dakioke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurretik, sekula ez nintzen izan marrazteko gai, ez nintzen gai gauzak buruan "ikusteko"; orain, ordea, buruan **kamera argia** izatea legez zen... dena "ikusten" nuen. ETC-literatura, saiakera

105 *kandela-argi* *(orobat **kandelargi** g.er.)*

Haize-kolpe batek **kandela-argia** dardararazi eta itzali egin baitu. Itziar Otegi

Pausoak gero eta hurrago, **kandela argiaren** garrak dantzan. **Kandela-argi** elektrikoz argituriko gela goxo batean afaldu zuten mutil gazteek. polita litzatekeela **kandela-argitan** afaltzea. Irene Aldasoro

Carmichael jauna liburua irakurtzen ari zen **kandelargitan**. Anton Garikano

Eta **kandela-argi** leunean entzuten dut, dendako bazter batean, ostiral gaua dela eta horko hori apaiza, rabbia dela. Urtzi Urrutikoetxea

106 *lurrikara argi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Lurrikara argia edo EQL (ingelesez, "earthquake light") lurrikara bat gertatzen ari den bitartean edo lurrikara gertatu baino minutu batzuk lehenago ortzian agertzen diren argi batzuk dira. ETC-entziklopedia

107 *neon-argi* *(**13** agerraldi, **5** liburutan; orobat **neoi-argi** **3** agerraldi, **3** liburutan)*

Kalera ematen zuen kristal handi hartan, **neon-argi** gorriko hodi mehe batzuez egindako errotulu bat ikusten zen zintzilik; "Cath's coffee shop", zioen. Iñaki Zabaleta

Neon-argi keinukari berdea zeukan goiko aldean. Fernando Morillo

Neon-argien itsustasunak ez zidaten xangrina eragotzi. Joxan Elosegi

"Hau da Las Vegas diot eta ez naiz lotsatzen" pentsatzen du zapata zuriak dituen gazteak, auzoak eta hiriak bere aldera erreskatatuz, aspaldi pasatako kontzertuen berri

ematen duten kartel erdi tarratatuei eta **neoi argiei** so. Harkaitz Cano

108 *neonezko argi* (*10* agerraldi, *9* liburutan; orobat ***neoizko argi*** *13* agerraldi, *6* liburu eta *4* artikulutan)

Hotel Roma da, **neoizko argi** gorri batek adierazten duenez. Anjel Lertxundi

Neonezko argiak eta tentelkeria amerikar ugari bazterretan, *country* eta *spaghetti western* estilokoak, 60ko hamarkadako aztarna nostalgikoak. Patxi Iturritegi

Artean goizegi piztutako **neonezko argiek** beste aldeko tabernaren izena zabaltzen zuten kalean zehar, gorri eta more orain, more eta gorri ondoren. Joxemari Urteaga

Gauerdia aspalditxo iragana, asteburuko usadioari jarraikiz, **neonezko argi** gorriek mugaturiko azpimundura jotzeko ordua zela deliberatu zuen Iñigok. Migel Angel Mintegi

Barru iluna **neoizko argi** aldizkako eta keinukariz piztuko da, horregatik dirdiratuko dira haginak, nabarmenduko dira botoiak, moretuko dira ezpainak, eta iragan mendeko lehen aldiko film mutuetan bezala mugituko dira gorputzak. Joseba Sarrionandia

Ilunabarrean, bigarren mailako errepideetako moteletan, **neoizko argien** pean kokatzen ditu Cillerok pertsonaiak, hondoa jotzera iristen ez den dekadentzia giroan. Berria - Kultura

Urrunean agertzen ziren saltegien eta iragarki erraldoien **neonezko argiek** pinpirin dirdiratsuak ziruditen. Ramuntxo Etxeberri

109 *oin-argi* (*corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi*)

Telebistan sartu-irtenak egiteko antzokietako **oin-argien** atzealde horretatik ateratzen da tarteka. ETC-prentsa

Horrelako pertsona bakanek harrigarriro amore ematen dute **oin-argien** glamouraren aurrean eta ez diote muzin egiten harrokeriaz mespretxatzen duten ofiziokoaren gaitasuna duenarenagandik iradokizun batzuk jasotzeari. ETC-literatura, saiakera

Aterki-ezpata batek gidaturik **oin-argietara**: Mario tenorra. ETC-literatura, saiakera

110 ***sorgin-argi*** ispilatzea, ispilukeria.

Kamioian dabiltza hara-hona, basamortuko **sorgin-argiak** baino iheskorragoak diren helburuen bila. Josu Zabaleta

· Sukalde erdian zintzilik bonbila hura jarri zigutenean, barruan hari bakarra bihurrituta ipurtargia zirudiela, dirdira izugarria egiten zuela iruditzen zitzaigun, **sorgin-argia** halakoa, eta amonak bekokian eskua jarri eta itzala eginez begiratzen zion. Pako Aristi

111 ***su-argi*** (*orobat **suargi** eta **sutargi**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **su-argi** agertzen da*)

Zaindarien **su-argia** ikusi zuen eta makurtu egin zen, etxetxo barrura begiratzera ausartzeke. Felipe Juaristi

Bazter batean zizekan **su-argia** indargetzen hasi zen; gero kliska egin, eta azkenerako itzali egin zen. Juan Garzia

Haren doministikuek **suargia** botatzen dute, begiek egunsentiak bezala dirdir egiten. Elizen arteko biblia

112 ***tripaki argi*** (*corpusean ez dago; ETCn 7 agerraldi*)

Sasoi honetan dagoeneko onddorik edota zizarik ez dela ageri esango du beharbada norbaitek, baina lehen izozteei ere aurre egiten dien **tripaki argiak** edota hydnum repandum delakoak negua iritsi arte ederki irauten duela esango dugu orduan, eta gure basoetan hutsik egin gabe agertu dela aurten ere. ETC-prentsa

Adibidez egun batean patatak **tripaki argiarekin** (Hydnum repandum) eskaini genituen, baina egun batean bakarrik. ETC-prentsa

Tripaki argia edo Negu ziza ("Hydnum repandum") onddo espezie bat da. ADN ikerketek erakutsi dute harreman estua duela "Zizahori Cantharellus cibarius" espeziearekin. ETC-entziklopedia

113 ***urdin argi***

Alkandora **urdin argi** bat zeraman, bakeroa. Bernardo Atxaga

Txarolezko oinetako **urdin-argiak**. Karlos Zabala

Sudurra painolu itxurako mukizapi **urdin argi** zabal batez estaltzen zuen. Aingeru Epaltza

Urdin argia zen [telefono mugikorra], ikaragarri ñimiñoa. Aingeru Epaltza

Galtzak **urdin argiak** ziren, garbi-garbiak, lisatu berriak. Felipe Juaristi

Batez ere begietan, haren bitxirik ederrenak baitziren haiek: bi aintzira **urdin argiak**, gizonezko eta gaztetxo sentiberen igerileku. Felipe Juaristi

Horia zuen ilea, eta **urdin argiak** begiak. Jose Morales

Eguzkia aurki agertuko zen alde gero eta **urdin-argi**, urdin margulagorantz. Iñaki Iñurrieta

Espaloiaren muturrean jantzi **urdin argiko** emakume gazte bat lasterka ari zen atzeraka. Monika Etxebarria

Lo egongo zen seguru asko, lasai ederrean, bere etxean, pijama **urdin argiarekin**. Unai Iturriaga

Urdin argiarekin kontrastean, hodeien gorri-laranja bizia. Iñaki Iñurrieta

Traje galtzadun beltza, **urdin argiz** zipriztindua, eta oinetakoak ere beltzak, takoirik gabeak. Ramon Saizarbitoria

Harrigarriki aldatzen zen haien kolorea: gorri, hori, **urdin argi**, urdin ilun edo berde agertzen ziren, zein beirakitatik begiratzen zien. Jose Morales

· Eguna argitzen ari zen, eta gero eta tarte **urdin**-argitsu gehiago ikusten ziren. Anjel Lertxundi

114 ***urubi argi*** (*corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi*)

Urubi argi, "Strix butleri". ETC-entziklopedia

115 ***zodiakoko argi*** (*corpusean ez dago; ETCn 8 agerraldi*)

Zodiakoko argia argi banda ahul bat da, ia hiruki formakoa, gaueko zeruan nabari daitekeena, ekliptikaren planoaren luzera osoan hedatzen, non Zodiakoko konstelazioak aurkitzen diren. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 20 aldiz agertzen direnak)**
>
> **argi adierazi** (46); **argi adierazten** (36); **argi ageri** (47); **argi ageri da** (29); **argi agertzen** (20); **argi aldian** (60); **argi aldian x** (60); **argi argi** (31); **argi asko** (53); **argi azaldu** (50); **argi azaltzen** (24); **argi baino** (28); **argi baino argiago** (22); **argi bat** (256); **argi bat piztu** (24); **argi batek** (28); **argi batekin** (20); **argi baten** (25); **argi berdea** (51); **argi berdea eman** (22); **argi da** (79); **argi dago** (1090); **argi dago ez** (35); **argi dagoen** (26); **argi dauka** (97); **argi daukagu** (37); **argi daukat** (74); **argi dio** (26); **argi du** (223); **argi dugu** (46); **argi dut** (27); **argi dute** (71); **argi eduki** (28); **argi egin** (48); **argi egiteko** (25); **argi egiten** (52); **argi erakusten** (144); **argi erakusten du** (46); **argi erakusten dute** (43); **argi erakutsi** (62); **argi esan** (96); **argi esaten** (29); **argi eta garbi** (1310); **argi ez** (62); **argi gehiago** (36); **argi gelditu** (72); **argi gelditu da** (31); **argi gelditu zen** (26); **argi gera** (31); **argi geratu** (179); **argi geratu da** (64); **argi geratu zen** (62); **argi geratzen** (28); **argi geratzen da** (22); **argi gorri** (29); **argi gorria** (45); **argi gorriak** (20); **argi guztiak** (41); **argi hitz** (56); **argi hitz egin** (35); **argi hori** (46); **argi hura** (25); **argi ibili** (30); **argi ikus** (26); **argi ikusi** (126); **argi ikusi zuen** (28); **argi ikusten** (177); **argi ikusten da** (39); **argi ilunak** (25); **argi izan** (122); **argi izan behar** (62); **argi izpi** (78); **argi izpi bat** (31); **argi izpiak** (27); **argi mintzatu** (25); **argi neukan** (23); **argi pixka bat** (22); **argi utzi** (759); **argi utzi behar** (49); **argi utzi du** (111); **argi utzi dute** (51); **argi utzi nahi** (130); **argi utzi zuen** (234); **argi utzi zuten** (56); **argi utziz** (20); **argi uzteko** (28); **argi uzten** (110); **argi uzten du** (63); **argi zegoen** (187); **argi zen** (24); **argi zer** (25); **argi zeukan** (20); **argi zuen** (36); **argi zuri** (21); **aski argi** (42); **batere argi** (68); **begi argi** (28); **bezain argi** (50); **burua argi** (32); **dena argi** (41); **egun argi** (39); **erabat argi** (21); **ez dago argi** (146); **ez zegoen argi** (21); **gauza bat argi** (26); **gauzak argi** (66); **guk argi** (25); **guztiz argi** (22); **hain argi** (93); **hori argi dago** (36); **horren argi** (22); **jarrera argi** (22); **modu argi** (24); **nahiko argi** (45); **oso argi** (221); **urdin argi** (22)
>
> **adibide argia** (36); **argia da** (209); **argia dela** (30); **argia du** (22); **argia egin** (44); **argia eman** (24); **argia ematen** (20); **argia ikusi** (74); **argia ikusten** (35); **argia itzali** (89); **argia izan** (78); **argia piztu** (125); **argia piztuta** (32); **argia zen** (86); **baten argia** (22); **bezain argia** (35); **buru argia** (55); **egun argia** (61); **eguzkiaren argia** (26); **esku argia** (21); **gizon argia** (31); **hain argia** (20); **helburu argia** (23); **jarrera argia** (23); **mezu argia** (31); **oso argia** (51); **zeruko argia** (24)
>
> **argi baino argiago** (22); **argiago ikusten** (31); **baino argiago** (71); **ezin argiago** (29); **gauzak argiago** (20); **gero eta argiago** (41)

---

argiagotu, argiago(tu), argiagotzen du *ad* argiago bihurtu.

Une hartan, leihotik sartzen zen argia **argiagotu** egin zen, ordu hartan bere gorenean behar zuen eguzkiaren paretik lainoren bat kendu izan balitz bezala, eta tapizeko koloreak bizitu egin ziren, profilak zehatzagotu. Iñaki Iñurrieta

Eguerdia **argiagotzen** ari zen, zeruak gero eta ostarte gehiago baitzituen. Anjel Lertxundi

Argirik ezak, arratsak, **argiagotzen** ote gaitu? Patziku Perurena

---

argialdi *iz* argi dagoen aldia; adimena argitzen den aldia; argitasunezko une edo aldia.

Gau batean, dokumentu hura 42. aldiz irakurri berria zuela, bat-bateko **argialdi** bat jausi zitzaion, tximista bezain bizkorra. Josu Zabaleta

Neure esperientzia klinikoaren arabera, banekien, beraz, Sararen gorabeherak eta aldarteak -**argialdiak** eta ilunaldiak- pazientzia handiz eraman beharko nituela. Joan Mari Irigoien

Itsumena eta **argialdi** edo argitasuna hertsiki loturik ageri dira fisika subatomikoan, amodioan, erlijioan, ekonomian, artean eta beste holako fedezko zera guztietan. Iñaki Segurola

Hotsik gabeko eztanda bat izan zen: **argialdi** urdin, itsugarri bat eta. Alberto Ladron Arana

Ukazio arteko zerumuga ilunbistan ere tarteka izaten dira bestelako ustekabeak, **argialdi** suspergarriak. Jokin Urain

Argialdi miragarria izan zen, buru gainean Espiritu Santuaren suzko mihia jarri balitzait bezala. Ramon Saizarbitoria

Berehala, halako **argialdi** moduko bat izan zuen: autobideak bere landetxe gainetik edo bere baratzetik igaro behar bazuen, kalte-ordaina eman beharko zioten. Eskarne Mujika

Argialdi tupusteko horrekin batera, "eureka" ozen bat entzuten da batzuetan, aldi berean tximista intelektuala eta bihotz-zirrara adierazten duena. Juan Garzia

Mozkorrek izan ohi duten aldian behingo **argialdi** euforiko horietako bat izango zuela pasatu zitzaidan burutik. Anjel Lertxundi

Argialdi itsugarri bat ere izan zen, Blacken eskuan zeuden makilek txinparta-sorta bat airera bota zutenean, ozta-ozta huts egin zutelarik Harryren aurpegia. Iñaki Mendiguren

Hausnartu beharra neukan ea Francok 1965ean izan zuen gaixotasuna, bere amets bizi-biziekin, bere krisi moduko haluzinazioekin, bere **argialdi** eta aldentze mistikoekin, ez ote zen Dosteievskiren sindrome baten hasiera. Xabier Olarra

Esan nahi dut **argialdi** bakoitzari ilunaldi luzea zerraiola. Joan Mari Irigoien

Ikusten denez, etsipenak, etsimenduak eta ernegazioak **argialdiaren** itxura ere har lezakete zenbaitetan, ilunaldiarena bezalaxe. Iñaki Segurola

Eztanda bat, begiak erretzen zituen **argialdi** bat. Alberto Ladron Arana

Kontua da irudimenaren berezko **argialdi** batean bururatua dela komedia, mirariz, izpirituaren elementu guztiak elkarrekin bateratu eta jainkozko adostasun batean lan egiten hasten direnean. Josu Zabaleta

Batzuetan ematen du bat-bateko **argialdi** batek bidebanatzen duela patua. Josu Zabaleta

Bat-batean, oso une berezietan gizakia bildu eta gogartearen gailurrik garaienetara altxatzen duen barne-**argialdi** harrigarri horietako batean, Vernerrek bizitza eta heriotza ikusi zituen, eta ikuskizun paregabe haren edertasunak txunditurik utzi zuen. Jose Morales

---

argiantz *iz* argi modukoa.

Abeli laster ohitu zaizkio begiak ilunpean, eta orduan ohartu ahal izan da eskuineko horman ate bat dagoela zabalik, handik datorkiela **argiantza** eta, aldi berean, han dutela tenpluko sarbidea. Pello Lizarralde

Ukuiluetako **argiantza** sarreretako harrietaraino iristen da. Pello Lizarralde

Argi elektrikoak ezin zuen **argiantzaren** kontra ezer egin, gau beltzaren aurka borrokatzen hain trebea izanik ere. Jon Muñoz

---

argiarazi, argiaraz(i), argiarazten du *ad* argitzera behartu.

Halakoetan, noiznahi, gure gogoak ezetza ematen dio adimenak eskainiari edo nahimenak eskatuari, eta gure gogoak adimena astintzen jarduten du, adijarduneko akatsa edo nahimenaren okerra edo oroimenaren hutsunea non dagoen **argiarazi** nahian. Jenaro Garate

Baina hik **argiaraz** dezakek beste guztien aitzinean. Herria

Gainerako arazoetan, azken bi erlijio hauetako jarraitzaileak (kristau eta musulmanak) **argiarazten** saiatu zirenetan, adibidez Hirutasunaren arazoa, eta, sekta batzuen artean, "hitz profetikoarena", berek landuriko hipotesi batzuk baietsi behar izan zituzten, zihoazkien oinarrizko arazo horien alde egin ahal izateko, bai eta erkidego bi horietako bakoitzak bere sineskeren berezitasunak defendatzeko ere. Xabier Kintana

Maitagogoak maitagogo huts direnez **argiarazten** eta indartzen ari direla gizartearen jarduna. Jenaro Garate

Kontenplatzen ari den pertsonak, istorioaren zinezko funtsaz jabeturik, bere gisa arakaturik eta arrazoiturik eta istorioa gehixeago **argiaraziko** eta sumaraziko dion zerbait aurkiturik, dela bere arrazoiketagatik, dela Jainkoaren indarrak adimena argitzen diolako, gozamen eta fruitu espiritual gehiago du. Patxi Altuna

---

argiberritu, argiberri(tu), argiberritzen da/du *ad* berriz argitu, argi berriz argitu.

Begiak hertsi eta (lorik egin gabe) eguna **argiberritu** zain gelditu nintzen. Juan Garzia

Biharamunean pozik eta alai jaiki zen Joanes ohetik, **argiberriturik**. Felipe Juaristi

---

argibide 1 *iz* zerbaiten berri jakiteko edo zerbait ulertzeko azalpena.

Ada eta Mitxel izenek beren **argibidea** duten bezala, ez nuke jakingo esaten nondik etorri zitzaidan Danel. Anjel Lertxundi

Josek esan zion: - Hona **argibidea**. Hiru saskiok hiru egun adierazten dute. Elizen arteko biblia

Eskerrak gaur, bazkalondoren, aitak **argibidea** eman didan. Xabier Etxabe

Eta ez nuen ulertzen, eta ez nuen ulertu, harik eta amak -zeinak marmolez egina baitzirudien, bai gorputzez, azal zuri distiratsu hura zuelako, eta bai arimaz ere, zeren eta hotza eta urruna baitzen- bere **argibideak** eman zizkidan arte: [...]. Joan Mari Irigoien

Nork eman dio kontseilu eta **argibide**, nork irakatsi jokabide zuzena? Elizen arteko biblia

Bertzenaz, hura ez zen **argibideak** emateko une egokia; gau bat baizik ez bainuen nahi, on iruditu zitzaidan biharamunean onezkoak egin zitzaten. Jon Muñoz

Agintzen duenak ez du **argibiderik** ematen, obeditzen ikasi duenak ez du **argibiderik** eskatzen. Anjel Lertxundi

Xehetasun eta **argibide** gehiago eskatu nizkion, lehendabiziko aldia baitzen halako aitormen bat egiten zidala. Anjel Lertxundi

Bitartean eta metaren orekari buruzko batere kezkarik gabe, liburutxo atera berriaren orri-pasa ari zen Umberto eta bertan kontatzen den istorioari buruzko hainbat **argibide** ematen: [...]. Anjel Lertxundi

Hizkuntza erkaketa, beraz, ez da eragiketa mekaniko bat; erkaketak, **argibide** emateko egokiak diren datu guztiak alderatzea ekarri ohi du ezinbestean. Isabel Arrigain

Urkatuari buruzko **argibide** gehiago eman zizkidan. Anjel Lertxundi

Argibide gehiago behar nuen forentsearengandik. Aingeru Epaltza

Medikuaren **argibide** gehiagoren zain bi-biok ere, elkarrekin. Joxe Austin Arrieta

ADNan daude **argibide** guztiak aldez aurretik ezarriak, eta zelula bakoitzak "badaki" zer izango den etorkizunean. Pello Salaburu

Inork ez dio **argibiderik** eman. Anjel Lertxundi

Ez zuen **argibiderik** eman behar, besteak beste inor ez zegoelako **argibide** horiek eskatzeko moduan. Pako Aristi

Honek, halarik ere, ez zizkion amari **argibideak** eskatu, eta, etsiak hartua bezala, bi hitz haiek errairatat mugatu zen: [...]. Joan Mari Irigoien

Sentitzen dut kontua hain presaka azaldu izana... eta, batez ere, honen **argibide** gutxi ematea. Alberto Ladron Arana

Ez zinatekeen haren kezkaz krudelki jolastuko, eri zinela hari iragarririk zure osasunaz **argibideak** hartzera joatera utzi gabe. Jon Muñoz

Argibideren bat nahi izanez gero dei iezaguzu txostenean azaltzen den zenbakira. Migel Angel Mintegi

Duda horren **argibidea** izan aurretik, Don Evaristoren ahots lodi-zakarrak esnatu zuen errealitatera: [...]. Joxemari Iturralde

Casettiren iritzian, filmak baditu bere baitan hainbat bitarteko formal, ikusleari filma irakurtzeko beharko dituen **argibideak** "komunikatzen" dizkiotenak. Josu Zabaleta

Ehuntariaren **argibideak** jaso ondoren, gorpua eramateko baimena eman zion Joseri. Elizen arteko biblia

Lagunak gara eta **argibide** bat zor dizut, Öchlerrek. Anjel Lertxundi

Hego-haize egunetako orbela bezain harro-alai utzi ninduten Faulknerren **argibideek**. Anjel Lertxundi

Prospektuko **argibideen** arabera, Fluoxetinaren eragina geldo samarra izango zen. Patxi Iturritegi

Gizonari begiratu nion, **argibideren** baten eske. Anjel Lertxundi

Neskak betazalak jaso zituen eta begiak guztiz zabaldu, Andreasen **argibidearekin** harriturik. bi aurkariak halaber lehenik borrokan hasi omen dira, ia beti gertatzen den bezala, eta borroka bukatu arte ez omen dira **argibidetan** hasi. Anjel Lertxundi

-Eskerrik asko zure **argibideagatik** -esan nion harrituta-. Bernardo Atxaga

Edozein fenomenoren **argibidetzat** zientziak eragile fisikoen bila jardun behar du, amaitu ezinezko datuen sokari jarraituz. Jenaro Garate

Pentagonoko bozeramaile Bryan Whitmanek, aldiz, honela argudiatu zuen Guantanamoko presoen izenak orain arte plazaratu ez izana: **"Argibideok** zabaltzeak kalte egingo ziela uste genuen". Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Oso **argibide** onak eman dizkigu -Mitxelenaren buru sendoa nigana itzuli zen une batez-. Alberto Ladron Arana

-Arrazoi duzu, andereño... **argibide** osagarri batzuk ematen baino ez nintzen ari. Iñaki Mendiguren

Argibide horiek zor dute, ordea, beste **argibide** osagarri bat. Anjel Lertxundi

Andreas isilik egon zen une batez, **argibide** sinesgarri baten bila, ez baitzion Noraren aitari benetako egoera adierazi nahi. Anjel Lertxundi

Hori esateko **argibide** zuzen eta zehatz gutxi daukagu. Koldo Zuazo

Jainkoaren gizonak debekatu egiten zizkien gehiegikeria horiek, aholku-hitz gozoz eta zentzuzko errietaz, eta anaien zauriak **argibide** zuhurren sendagaiez lotzen zituen. Askoren artean

Hizkuntza eta idazkeren gai honetan gauzak aski nabarmen daude, **argibide** zehatzik behar ez izateko. Iñaki Mendiguren

Egonkortasunari buruzko beharrezko **argibide** zehatzak. Bego Montorio

Argibide zehatzak eman zizkigun, eta haiek jarraituz, denbora gutxiren buruan gain batera iritsi ginen; Oso gutxi irauten zidaten gustukoa nintzaiola edo maite ninduela bezalako **argibide** ilusiozkoek. Ramon Saizarbitoria

Baina nire deserosotasunak hamar urteko ume batek esplikatu ezin duen **argibide** sakonago bat merezi zuela iruditzen zitzaidan. Anjel Lertxundi

Banekien **argibidea** ez zela zuzena, baina hitzak falta zitzaizkidan, hitz egokiak, arrazoibidea, dotorezia, jendearen arreta neureganatzeko. Anjel Lertxundi

Horra labur adierazita aurretik **argibide** luze askoak behar izan dituen ondorioa. Anjel Lertxundi

Zerbitzariak, sorbaldak goraturik, ez zidan inolako **argibiderik** eman. Anjel Lertxundi

Hala eta guztiz ere, ez dago esaterik aparteko **argibiderik** azaldu zuenik: [...]. Ramon Saizarbitoria

Arestiren gaineko **argibideak**, berriz, Angel Zelaietak (2000) egindako biografian. Koldo Zuazo

Kontatzen ari naizen eltzeko domeka hartan ere aitak ohiko **argibideak** eman zizkigun ohiko suhartasunarekin. Anjel Lertxundi

Ontsa asmatu nuen Tourvel andreak beldur izanen ziola ukoarekin batera eman beharko zuen eskandaluzko **argibideari**: gutuna hartu zuen alabaina. Jon Muñoz

Noiztasuna ohiko denbora banaketaren legera zehaztu gabe ere, semearen erantzuna **argibide** aski zen. Aingeru Epaltza

Adibide asko aztertzen da **argibide** gisa. Iñaki Mendiguren

Hor ageri da familia memelo hori, aurkezlearen **argibideei** adi-adi. Jokin Muñoz

3 (hitz elkartuetan)

Emakumea zain geratu zen **argibide**-leihatilaren ondoan. Lopez de Arana

Ezkondu ziren, haurrak etorri ziren, eta haiek jaio zirenean ez zekarten **argibide** libururik besapean. Luis Elberdin

Pentsa ezazu esku artean duzuna ikuskizunaren **argibide**-gidaliburua baino ez dela: zertaz ari den egokiago ikusteko, hobe da "gidaliburua irakurri ondoren" telebista piztea. Xabier Paya

Begiratu egin beharko dut **argibide**-liburuxkan. Karlos Linazasoro

Baina **argibide** iturri hori ez da oso fidagarria, ez zutelako egile haiek azterbide fonologikorik. Isabel Arrigain

Jo **argibide** bila apaiz lebitarrengana eta une hartan txandan egongo den epaileagana. Elizen arteko biblia

4 ***goi argibide***

Gure arbasoek Justinianoren Bilduma idoro zutenean, halako **goi** argibidea izan zuten. Andres Urrutia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argibide asko (3); **argibide bakar bat** (3); **argibide bakarra** (5); **argibide bat** (11); **argibide batzuen** (3); **argibide batzuk** (11); **argibide bila** (10); **argibide eman behar** (4); **argibide ematen** (4); **argibide gehiago eman** (8); **argibide gehiago emango** (3); **argibide gehiago ematen** (3); **argibide gehiago eskatu** (3); **argibide gehiagoren** (4); **argibide gehiagorik eman** (3); **argibide gisa** (5); **argibide guztiak eman** (3); **argibide hauek** (7); **argibide helegitea** (8); **argibide horiek** (9); **argibide zehatzak** (4); **argibide zehatzik** (3); **beharrezko argibide** (3); **bere argibide** (3); **beste argibide** (3); **beste hainbat argibide** (3); **buruzko argibide gehiago** (3); **buruzko hainbat argibide** (4); **da argibide** (3); **dituen argibide** (3); **du argibide** (3); **dut argibide** (3); **edozein argibide** (3); **hainbat argibide eman** (7); **zenbait argibide eman** (3); **zer argibide eman** (3); **zuen argibide** (7)

argibidea eman (6); **argibidea emateko** (3); **bere argibidea** (4); **buruzko argibidea** (3)

argibideak behar (3); **argibideak emaiten** (3); **argibideak eman behar** (6); **argibideak eman beharko** (9); **argibideak eman ditu** (6); **argibideak eman zituen** (5); **argibideak eman zizkidan** (4); **argibideak emanez** (3); **argibideak emango** (4); **argibideak ematea** (4); **argibideak emateko eskatu** (4); **argibideak ematen hasi** (5); **argibideak eskatu zizkion** (4); **argibideak eskatzeko** (6); **argibideak eskatzen** (6); **argibideak galdegin** (3); **argibideak in** (3); **buruzko argibideak eman** (4); **buruzko argibideak emateko** (3); **buruzko argibideak ematen** (4); **diren argibideak** (3); **emandako argibideak** (6); **gaineko argibideak** (11); **inguruan argibideak** (5); **inguruko argibideak eman** (3); **inguruko argibideak emateko** (3); **jasotako argibideak** (3); **lehen argibideak** (3); **zituen argibideak** (3)

argibideei jarraiki (3); **emandako argibideei** (3)

emandako argibideen arabera (26)

argibideren bat eman (3); **argibideren bat emateko** (3); **argibideren baten bila** (3); **buruzko argibideren** (3)

argibiderik behar (6); **argibiderik eman ez** (4); **argibiderik eman gabe** (8); **argibiderik eman nahi** (4); **argibiderik ematen** (11); **argibiderik ez** (13); **argibiderik gabe** (5); **beste argibiderik eman** (5); **dit argibiderik eman** (4); **dute argibiderik** (3); **ez dit argibiderik** (4); **ez du argibiderik** (3); **ez zuen argibiderik** (4); **horri buruzko argibiderik** (4); **inguruan argibiderik** (3); **inguruko argibiderik eman** (3); **inolako argibiderik eman** (5); **inongo argibiderik eman** (3); **zuen argibiderik eman** (3)

---

argibidetu, argibide(tu), argibidetzen du *ad* argibidea eskaini.

Ordu arte ez dit inork erakutsi, baina une horretan jakin dut hizkuntzak izendatzen gaituela, hizkuntzak **argibidetzen** duela gure nortasunaren iluntasuna, eta baita ere hizkuntzak zehaztuko dituela geure burua agertuko digun ispiluaren neurriak. Pako Aristi

---

argibidetxo *iz adkor* argibide xumea.

Aukeratu, hemen betiko egon nahi ez baduzu, aukeratzen laguntzeko, lau **argibidetxo** emango dizkizbgu: Lehena: pozoia, maltzurki ezkutatzen saiatu arren, beti aurkituko duzu asun-ardoaren ezkerreko aldean. Iñaki Mendiguren

---

argidorre **1** *iz* itsasargia.

Hortik mendi kaskoan eraikia den itsas-**argidorreraino** heltzen gira. Herria

2 irud/hed

Nafarroa, Euskal Herri barnekaldeko **argidorre**. Herria

---

argidotar *izond* gailena, ospetsua, itzaltsua.

Gure (mundu ororen?) aurrekoak eta aitzinekoak, zintzoak dira eta leialak, nobleak eta azkarrak, **argidotarrak** eta bulardetsuak, ohoragarri, beneragarri eta imitagarriak. Iñaki Segurola

José de Múgica y Múgica jaun **argidotarrak**, bere zaurietatik bizkor senda dadin opatu zion, eta zorte ona honezkero España berriaren eta Gurutzadaren sinbolo den Nafarroako hiriburura zeraman arazotxoaren konponbidean. Inazio Mujika Iraola

---

argidun **1** *izond* argia duena.

Gero apurka-apurka atzerantz okertzen eta alde **argiduna** pilotaren masatik apartatzen du; Babiloniako Kaldearren doktrinak astrologoen zientzia errefutatu nahi duen moduan, bakoitzak defendatzen duena ezinezkoa balitz edo azalpen bata zein bestea onartzeko arrazoi gutxiago balego bezala. Xabier Amuriza

Bertan izateak Noir bulebarraren lehendabiziko ehun metroak (Redoute bulebarretik Paradis karrikaraino) ernaldu ditu eta hamalau farola eta lau kafetegi, Rendez-vous des Cheminots eta beste hiru, elkarren aldamenean sorrarazi, egun osoan egonean egon ondotik gauean argitu eta lurrean errektangelu **argidunak** islatzen dituztenak. Monika Etxebarria

Lagun batek, oporretan Turkia aldera joan zelarik, hango gau garden eta izar **argidunak** ikusita, harriturik zioen honuntza iritsitakoan, Grezian ez zela ilargirik ikusten, hemen ikusten den hau, han beste non edo han ibiliko zela nonbait. Pello Zabala

Gaur dakigunaren arabera, ikusmeneko unibertsoa atomo baten parte txiki bat izan liteke, ioiz osatua, animaliaren baten bizi isurkinetan (eter **argiduna**) flotatuz legokeena. Xabier Olarra

Leiho zabala, berariaz iluna, zeinek erdian zeraman Miller garagardoaren anagrama, hodi **argidunez** egina eta taberna zabalik zenean beti piztuta egoten zena. Iñaki Zabaleta

Atzera begira zeuden, Columbus Circle-ko kartel **argidunen** distirari so. Lopez de Arana

Isilka-misilka, akuario baten kristal lodi batetik bezala, Ellenek bere igaroan aurpegiak, fruta-erakusleihoak, lekale-poteak eta oliba-pitxerrak ikusten zituen, bai eta lore gorriak loradenda batean, egunkariak eta errotulu **argidunak** ere. Lopez de Arana

Gero zutitu, nagiak atera, eta orduari begiratu zion ohe ondoko mahaitxoan zegoen iratzargailu **argidunean**. Iñaki Mendiguren

Izenburuko bidaiari misteriotsuarekin denok egin beharreko ibilbidean hainbat lurralde zirraragarri zeharkatuko ditugu, hala nola haize gaineko pasabidea, bidaiariak maleta **argidun** bat eskuan duenekoa, edota bihotzik gabeko hiria, automatismoetan erabiltzen diren kartoi zulatuen proiekzioekin egina. Berria - Kultura

Sarritan berba egiten zidan inguru hartaz, gogorarazten zizkidan zenbait txoko, plaza, kale, etxe, horien gainean egon ohi ziren iragarki ospetsuak, erakusleihoetako ohar **argidunak**, edo, bere hitzetan, "Budapesteko argiak". Urtzi Urrutikoetxea

Halako batean, begiak goratu eta Saint-Eustacheren erloju **argiduna** ikusi zuen, elizaren irudi grisarekin batera. Karlos Zabala

Populurik ez baita izan orain arte munduan hain urdin delikatu eta **argidunen** egiteko gai izan denik. Aurelia Arkotxa

2 (izenlagun gisa)

-Konposizioaren prozesua da garrantzitsuena, Alberto -esaten zion Justo Badiolak diapositiba bat apartatu eta **argidun** mahaiaren gainean behatuz. Joxemari Urteaga

New York lainotua ilunabartzen ari zuen, kaleetako eta etxeetako argiak pizten zihoazen eta ordu erdi bat baino lehenago beste itxura bat hartuko zuen hiriak; bloke beltzak **argidun** zuloz, etxe-sailak zirenik ezkutatuz; autoen joana su artifizialak bezala. Iñaki Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argidun mahai** (3)

---

argidura *iz* argia, argitasuna.

Muga kaskora heltzean, lehen **argidura** ikusi zuten mendien gibelean. Eneko Bidegain

Eguzki ikustezin batek zulatu ditu hodeiak eta **argidura** zuri bizi batek ezarian bildu du ibarra. Pello Lizarralde

Uraren soinuan murgiltzeak aurreko minutuetakoak ekarri dizkio, kateatuak, ustegabearen **argidura** urrunak lausotuak. Pello Lizarralde

Desiratu ditu dorreko ezkilaren soinua, landa urruneko suaren **argidura**, kilkerrak... Pello Lizarralde

---

argiezin *izond* ezin argituzkoa.

Nolaz ote zen prokuradore eta zuzendaritza kide haren konfiantzaren hartzeduna, misterio **argiezina** zitzaion. Elena Touyarou

Alderantziz, Montoya sartzen bazaio, lasterketak ezezagun asko izango ditu, eta amaiera **argiezina**. Berria - Kirola

Asoziala zen bera, sei hilabete zituenean; eta zurrundu egiten zen amaren besoetan garai hartan; halako erreakzioak ere -autistengan normalak- **argiezinak** iruditzen zaizkio gogamenaren teoriaren arabera. Xabier Olarra

---

argigabe **1** *izond* argirik ez duena.

Upaginen karrika **argigabe** narratsa, distira hutsa zitzaidan gau miresgarri hartan. Txillardegi

Zeren, zergatik deza-ke ilargiak eguzkiaren argia mozt eta bere buru gailena haren eta lurraren bitartean ezar, bere disko iluna izpi goriei jarkiz, aldi berean zeruan lerratzen den beste gorputz beti **argigabe** batek hori bera egin dezakeela ez pentsatzeko moduan? Xabier Amuriza

2 (adizlagun gisa)

Besteek merezia zuten **argigabe** eta ilunpeen preso egotea, zure seme-alabak -itzaltzen ez den argia, zure legea, munduari eman behar ziotenak -preso eduki baitzituzten. Elizen arteko biblia

---

argigabetu, argigabe(tu), argigabetzen *du* ad argi gabe gertatu.

Zergatik dezake lurrak, halaber, ilargia **argigabetu** eta, bera gainean dela, eguzkia geldi atxiki, hilero konoaren itzal barruan zorrotz dabilen bitartean. Xabier Amuriza

Behinola itsaso handia ireki eta legioei ur handian zehar bidea eman eta olatu gazien gainean oinez joaten irakatsi ziena eta, zaldi gainean bertara jauzi eginez, itsasoaren arrabotsa arbuiatu zuena, huraxe ere **argigabetua** izan zuan eta arima gorputz hilkorretik kanpora jaurti zian. Xabier Amuriza

---

argigabetze *iz* argia kentzea.

Gustatzen zitzaion iluntzeari eklipse izenarekin deitzea ere, halamoduzko **argigabetzea** zenean, batik bat: España ilunbean dago, nola eklipse zikiñak eguerdian kentzen dio eguzkiari argia. Pello Zabala

---

argigailu *iz* argitzen duen gailua.

Lurreko leku guztiak badaude Aleph-ean, hantxe egongo dira argi guztiak, **argigailu** guztiak, argi-iturri guztiak. Juan Garzia

Urte ondarreko besta karietarat ezarriak dira hauek eta urtetik urterat beti aberastuz doatzin **argigailuak**. Herria

Beti izaten zen kantu parte-hartzaileren bat, **argigailuaren**, berbenaren, lore jokoen, kabalgataren, karrozaren, mozorroaren, danborraden, zezenen -egiazkoen eta suzkoen-, zaldiko-maldikoaren, zaldiketen, xedera jaurtitzearen, erraldoiaren eta buruhandiaren artean une jakin batean behar zenerako egokitzen zena. Askoren artean

Harekin batean ondoko bi abatetarik **argigailu** azkarrak pixturik argitu zituzten apaleko inguruak; erran gabe doa lurrean etzan ginela argiek zoko moko guziak miatzen zituztela. Herria

---

argigaitz *iz* argitzen gaitza, ia argiezina.

Naturaren eta izpirituaren arteko lotura proiektuan baietsi hori, Ortega-rentzat ukaezina, hala ere **argigaitza** da, haren zer-nolakoa ximenki doitzeko orduan: [...]. Joxe Azurmendi

Horregatik idazten dut agian, nabigatze hutsagatik, idazteagatik beragatik soilik, pultsio eta oldar **argigaitz** batengatik, katuak jolasean arratoia itotzen duenean elikatzeaz gaineko beste zeregin larriago baten bultzadagatik egiten duen bezalaxe. Hasier Etxeberria

---

argigarri **1** *izond* zerbait argitzen, azaltzen edo frogatzen duena; zerbaiti buruz argi egiten duen zera.

Hitzaurreko berba **argigarri** batzuek ukenduarena egin zuten nire ariman. Edorta Jimenez

Ekar dezagun hona harira, dena dela, pasadizo **argigarri** hau: [...]. Pello Salaburu

Horietako bati ekin aurretik, bada beste datu **argigarri** bat liburu horretan, aipatu beharrekoa. Edorta Jimenez

Adibide **argigarri** bat ematen du Zuazok, prentsa artikulu batetik hartua: [...]. Pello Salaburu

Unibertsitatearen balio egiazko hau zein den ikusteko adibide **argigarri** bat: orain dela urte batzuk, 1998an, EHUn ardurak genituenean, plan bat proposatu zitzaien alderdi politiko guztiei EHUk Bilboren garapenean izan zezakeen zereginaz, kontuan harturik munduko zenbait hiritan gertatu zena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bostehunen bat orritan sartzen da (ehun eta berrogeita hamar orriko bibliografia eta pare bat mila ohar **argigarri** barne direla), autoritatezko argumentuz ("Halakok dioenez") mozorrotutako umekeria pedantez mamitua dago tesi guztiak bezalaxe, eta ez dago kristaurik hango jardun lehorra inork derrigortu gabe irakurriko duenik. Iñaki Segurola

Frankoen eta bizantziarren arteko ezinikusia erakusten duen greko eta latinezko literatura ugaritik, alde bakoitzeko bozeramaile adierazgarri baten pasarte **argigarri** gutxi batzuk aipatuz konformatu beharko dugu. Iñaki Mendiguren

Behar zen garaian, alabaina, argitu zuen berak, Napumocenok, ustez beti izana zen herritar zintzoari zegokion arreta eta interesa jarri arren, ez zuela lortu independentziaren kontuan kontzientzian aukera egiteko nahiko elementu **argigarririk**. Bego Montorio

Ildo horretatik, Joseba Agudok, Mexikon preso daudenen abokatuak Berriari jakinarazi dionez, epaileak hainbat froga **"argigarri"** ez ditu onartu. Berria - Euskal Herria

Gure azalpenean, ingelesezko perpaus gramatikalen intuiziozko ezagutza bat badela onartuta, galdera egingo dugu ea zer motatako gramatikak lor dezakeen perpausok modu eraginkor eta **argigarri** batean sortzea. Itziar Laka

Etxera itzultzen naizenean, pentsatzen nuen -berba soil, **argigarri** horiekin, eten ere egin gabe, kontu guztiz natural hauek soilik interesatuko balitzaizkit bezala-, etxera itzultzen naizenean, amaiera emango diot horri guztiari, bakea behar baitugu -erabakitzen nuen. Urtzi Urrutikoetxea

Eta azpititulua, **argigarri**: "Biztanleek prezioen igoera salatzen duten bitartean, etxe salmentarako agentzia bat atentatu baten begian atzo goizean". Iñigo Aranbarri

Aitor dut **argigarri** eta bidezko iritzi niela emakumeak egindako bereizketa horiei. Anjel Lertxundi

Jaunaren legeak zuzenak, bihotzaren pozgarri; Jaunaren agindua distiratsua, begien **argigarri**. Elizen arteko biblia

Nik ere argazkiak sartu beharko nituzke liburu barruan, unean-unean komentatzen ari naizenaren **argigarri**. Xabier Mendiguren Elizegi

Handik hilabete batzuetara, etorri ziren bezalaxe desagertuko dira gehienak, eta geratzen direnak higatzen joango, jatorrizko hartatik arrastorik gorde barik apenas, baina **argigarri** eta mingarri beti: barbaroa, türka, kafrea, mongola, moroa. Iñigo Aranbarri

Ameriketan gertatutakoa **argigarri** izan daiteke. Bernardo Atxaga

Hola da izanak ez zirenentzat ere **argigarri** izan laguntza hori. Herria

2 (mugatzaile gramatikalekin)

Argigarria iruditzen zitzaigun legeriak euskal errefuxiatuei ezarritako egoera ulertzeko. Rafa Egiguren

Hala ere, eta hau da harrigarria -edo **argigarria**-, zuk beste zerbaiti buruz euskaraz galdetu eta txintxo-txintxo erantzungo dizute Aitorren gisa, barna batere ttipitu gabe. Pello Salaburu

Ondoren, definizio **argigarria** ematen du: [...]. Iñaki Arranz

Ziurtasun ezaren adibide **argigarria** dugu Phineas Gageren kasua, eta, 1848tik gaur arte, kasu horri buruz emandako azalpen zuzen nahiz okerrak. Xabier Olarra

Miarritzeko hegietan, Biriatuko mugetan eta Donostia, Zarautz, Bergarako hiriguneetan barna. irakaspen heleniko hori **argigarria** da zibilizazio garaikideen arteko topaketen azterketa orokorrerako. Herria

Irail horretako 3ko txostena guztiz **argigarria** da. Edorta Jimenez

Frantziskoren erantzuna guztiz **argigarria** zaigu. Askoren artean

Argigarria izango litzateke jakitea, esate baterako, horietako zenbatek duen doktore gradua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Argigarriak baino gehiago, adierazgarriak dira. Pello Salaburu

Baita marrazki deskriptibo **argigarriekin** ere. Luis Elberdin

Hala, bada, liburua goitik behera irakurri eta topografia genitala ikasi dute marrazki **argigarrien** bidez. Luis Elberdin

Arazo hau azaltzeko modurik **argigarrienetako** bat hauxe dateke, agian: gure prozesu mentaletan informazio binarioa erabiliz imita ezin daitekeena da "irudi mentala". Josu Zabaleta

Egun beroak izenburua darama instalazioak, eta **argigarrienetakoa** da. Berria - Kultura

Jakinduriaren altxor artean daude esaera zahar **argigarriak**, baina nardagarri zaizkio bekatariari, jainkozale ez delako. Elizen arteko biblia

Niretzat, baina, eszenarik **argigarriena** ustezko prostitutarena izan da, berak esan digunez telebistara doazenak bera baino sakonago prostituitzen direlako beren nahiak, ametsak eta ilusioak hau da, beren intimitatea saltzen dutelako. Berria - Kultura

3 (izen gisa)

Argigarri bat: astialdia izendatzeko grezierazko berba (sjolé) eskola esateko erabiltzen zuten bera zen. Berria - Gaiak

Baliteke lobulu tenporaleko epilepsian nortasun-aldaketa hori gertatzea, eta hortxe dugu, hain zuzen, aukeran ditugun **argigarri** bakanen artean garrantzizkoena, jokabidea gidatzen duten emozio-indarren azpian dautzan sistema neurologikoak deszifratzeko. Xabier Olarra

Ikus, **argigarri** gisa, Hilde de Ridder-Symoens (ed), *Historia de la Universidad en Europa*, UPV/EHU, Bilbao, 1994. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bide batez, eta **argigarri** modura, etxekoek aurreko 1937ko pasadizo ospetsua kontatu zioten, zera, Falangeren ordezkari Gregorio Prendek irlako espainiar denak falangista egiteko derrigorra zutela paperen bidez jakinarazi zuenekoa. Edorta Jimenez

Hurrengo alea ere leku berean azaldu zen, 1999ko ekainaren 13an, eta zenbait arrazoi-moduren **argigarri**, egoki iritzi diot hemen berriro ateratzeari. Iñaki Segurola

Bego hau guztia, aitzinekoaren **argigarri**. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adibide argigarri bat (3); **argigarri izan** (6)

argigarria izan daiteke (5); **argigarria izan zen** (9); **argigarria izango** (3); **aski argigarria** (4); **baina argigarria** (3); **bezain argigarria** (3); **erabat argigarria** (3); **ere argigarria** (3); **oso argigarria da** (4)

argigarriagoa da (3)

argigarriak dira oso (9); **argigarriak direla** (3); **argigarriak izan** (4); **aski argigarriak** (6); **datuak argigarriak dira** (5); **emaitzak argigarriak** (4); **estatistikak argigarriak dira** (3); **oso argigarriak** (3)

---

argigarriro *adlag* era argigarrian.

Spanish Falange (kasu honetan entrenamendu militarra aipatzen du, eta "Espainiak, hasteko eta behin, abantaila du Latinoamerikako herrietan espainieraz hitz egiten dela" dio **argigarriro**). Edorta Jimenez

---

argigile *iz* argi egiten duen pertsona.

Berarentzat arrazoimenak askatasuna omen duen nahimenean ipintzen duen 'lege' objektibo bat (edo nahi besteko lege multzo bat) da ongi eta gaizki egitearen **argigile** edo ebazle, gizakiaren fakultate den arrazoimenak nahimenari emaniko lege bat, eta lege horrek aurkezten dizkigu eginbeharrak. Jenaro Garate

2002ko udazken aldera euskal komunio nazionalistako **argigile** plusquamnazionalen batzuek idatzitako pastoral moduko bat zabaldu zen, artzain-gutuna esan nahi dut, ez teatroa. Iñaki Segurola

---

argigune **1** *iz* gune argitsua. ik **argiune**.

Oraindik presaka jarraitu zuten hogeiren bat minutuan, eta gero, **argigune** batean, gizon bat topatu zuten, mendiko guardiaren bat agian; non ziren galdegin zioten, Italian ala Jugoslavian. Josu Zabaleta

Euskal Herriaren itzal eta **argiguneak** azpimarratzen ditu. Berria - Harian

Azken boladan, "estortsioa" bezalako "itzalguneen" gainetik, bera "baikorra" dela azaldu nahi izan zien enpresaburuei, "bene-benetan **argiguneak** itzalguneak baino handiagoak direlako". Berria - Ekonomia

Argiguneak mozten du sakez azken izaien itzala eta hor berean daukat, azkenean, ene kapera. Piarres Aintziart

Handik gutxira, zuhaitzen artean, beheitiago, baina ez oso urrun, bi **argigune** antzeman dituzte. Pello Lizarralde

Odol xirripa **argigunera** heldu da. Pablo Sastre

Argigunearen beste aldean, beraren kabinaren beste kabina berdin-berdin bat abiatu zen igoaldi berean. Jon Muñoz

Lorategian zakur zaindaririk ez zegoenez, nahikoa zuen **argiguneetatik** pixka bat urruntzea, inork ez zezan ikus. Aitor Arana

2 (izenondoekin)

Eraikin nagusiaren erdian, adibidez -liburutegia bere baitan zeukan hartan, alegia-, **argigune** handi bat ireki zuen. Jon Muñoz

Eguerditan atertu zuen, eta orenak iragan doia emendatuz ari ziren **argigune** handiak ikus zitezkeen zeruan. Elena Touyarou

Hodeien atzean ezkutaturik, ilargia han nonbait bazebilela ikus zitekeen, zeruan sortzen zuen **argigune** ahulari esker. Aitor Arana

Ilunpeak erabatekoa badirudi ere, pixkanaka **argigune** zuriak begiztatu ditu han-hemenka sabaiko habeetan. Pello Lizarralde

---

argihauts *iz* argiaren hautsa.

Batzuetan, **argihauts** zerrenda hura buruen gainean genuela, mutiko taldeen arteko borrokak hasten ziren, eta areto zaintzaileok geure linternarekin jaiki behar genuen, faroaren moduko dzartadak emanez eta isiltzeko aginduz. Joseba Sarrionandia

---

argijale *izond adkor* argia jaten duena.

Begi beltzak ziren, gau sarraskigilea, gau **argijalea** betile zutenak. Felipe Juaristi

---

argiketa **1** *iz* argitzea, argi egitea.

Hizkuntza alemanak "esposizioa", "esplikazioa", "deklarazioa" eta "definizioa" adierazpenetarako hitz bakarra dauka: **"argiketa"** (Erklärung), eta horregatik eskakizunaren zorroztasuna pixka bat leundu behar dugu, zeren guk, hain zuzen, **argiketa** filosofikoei definizioaren izen ohoretsua ukatzen baikenien, eta ohar oso hau honetara zedarriztatu nahi dugu. Ibon Uribarri

Argiketaz (expositio), ordea, zera ulertzen dut: adigai bati dagokionaren errepresentazio nabaria (xehea ez izan arren); **argiketa** hau metafisikoa da adigaia a priori emana bezala aurkezten duena barnebiltzen badu. Ibon Uribarri

Arrazoimen hutsaren oinarri-esakune kritikoen onura positiboari buruzko **argiketa** hau bera Jainkoaren eta gure arimaren izaera bakunaren adigaiei begira ere erakuts daiteke. Ibon Uribarri

Ageriko zen dena, ezkutuko bihurtu zen; galdeketak, **argiketak**, frogaketak, aurrez aurrekoak, alderdi publikoaren konklusioak; eta horixe da egungo jardunbidea. Iñaki Iñurrieta

Erabil daitezke bai gauzen ahalgarritasunaren **argiketarako** sentsuen munduan, baina ez mundu-osokiaren ahalgarritasunaren **argiketan**. Ibon Uribarri

2 (izenondoekin)

Denboraren adigaiaren **argiketa** metafisikoa. Ibon Uribarri

Oraingoz, **argiketa** zorrotz hori utziko dugu, lehenago hau kontsideratzeko: alde batera jotzera behartuak baginateke, ea zein aldetara joko genukeen hoberen. Ibon Uribarri

Hain heterogeneoak ere ez diren beste zientzia guztietan ez dago **argiketa** berezi baten beharrik. Ibon Uribarri

Argiketa transzendentalaz beste ezagutza sintetikoen ahalgarritasuna a priori aditzea ahalbidetzen duen adigai baten argipena ulertzen dut, adigai hau oinarri-esakune bat den heinean. Ibon Uribarri

Arrazoimen hutsaren paralogismoetako itxura transzendental nahiz berezkoaren **argiketa** nabari eta orokor baten eta, era berean, sistematikoa den eta kategorien taulari paraleloki darion antolamenduaren legeztapenaren zordun gara oraindik. Ibon Uribarri

Askatasun transzendentalari buruzko galdekizunak jakintza espekulatiboa baino ez du ukitzen, eta guk axolagabe gisa alde batera bazter dezakegu arlo praktikoaz ari garenean, eta honi buruzko **argiketa** gogobetegarria arrazoimen hutsaren antinomian aurki daiteke. Ibon Uribarri

3 (hitz elkartuetan)

Volksgeist kontzeptuaren **argiketa** saio berri bat. Joxe Azurmendi

Horrez gain arrazoimenaren azterketa subjektu honetako **argiketa**-oinarriak, ahal den heinean, printzipio bakar batean biltzera zuzentzen da Zilegi izan daiteke

onargarritasun gorena duen zerizanaren izatea ondorio ahalgarri ororen kausa gisa onartzea, honela arrazoimenari berak bilatzen duen **argiketa**-oinarrien batasuna erraztearren. Ibon Uribarri

Horrek ez du oztopatuko agerpenean duten kausatik abiatuta konplituki argituak ahal izatea izadiaren legeen arabera, beren izaera enpiriko soilari **argiketa**-oinarri goren gisa jarraitzen zaion heinean. Ibon Uribarri

---

argiketari *iz* argindarrezko instalazioak egiten edo konpontzen dituen, edo haietaz arduratzen den langilea edo teknikaria.

Neurozirujauak, endokrinoak, psikiatrak, psikoanalistak eta baita **argiketariak** ere lanean jarri ziren, betiere zientziaren izenean eta haiek "osatzeko" asmo jatorra tarteko zela. Luis Elberdin

---

argiki 1 *izlag* argi eta garbi.

Argiki oroitzen naiz Paul Emile Victor-ek Iparrean filmatu zituen Inuit-ez egin erreportajeez, edo Aroun Tazieff bulkanologoak munduko sumendi handiez egindakoaz. Ana Urkiza

Argiki entzun da haren bizkarrezurra jotzean fusil baten kirtenak sortu hotsa. Xabier Montoia

Alta izaki misteriotsua ez zegoen nigandik hain urrun, hitz egin zuenean, **argiki** entzun nuelako: [...]. Itxaro Borda

Nonahi ari ziren kantari, baina asko zorroztu behar zen begirada txori haietakoren bati **argiki** antzemateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Aulki, mahai eta ohantzeen higitzeak eragin zalaparta jabaldu delarik, Polleten soinua **argiki** aditu da barne osoan. Xabier Montoia

Horretarako, hegazkinaren leihoa altxatu behar zuen, nahiz eta aipatu 'hôtesse' horrek jadanik **argiki** debekatu zion. Ramuntxo Etxeberri

Hemen, objektua bere baitan zein bere hartuemanetan begiespenari aurkeztu egin ahal eta behar dio edo, gutxienez, antzeko begiespen jakinetan **argiki** eta nabarmenki eman daitezkeen irudien adigaietan. Ibon Uribarri

Argiki ihardets iezadazu: zerk edo nork debekatzen dizu osoki euskaraz bizitzetik? laneko gatazka arin horrek, salatzen eta jasaten nuen bazterketaren hobenduna neroni nintzela **argiki** frogatzen zidan. Itxaro Borda

Baina, handik laster, Tzarkoren lan sakon eta bikainari esker, baseko abertzaleak ikasi zuen gauzak **argiki** bereizten: [...]. Itxaro Borda

Askatzaileek zuen populuaren barnean eta zuen lurraldetik kanpo barreiatzen duten terrore latzari eguneroko zereginez ihardetsiko zaio, jakin arren zehazki eta **argiki** eguneroko zeregin horiek muga hertsiak eta ahulak dituztela. Itxaro Borda

Gabriel Aresti salbatzea enpresa zailagoa iruditzen zitzaion, XXI . mendeko medikuntza-aurrerapenek haren sendaketa teknikoki posible egiten bazuten ere: metodo **argiki** anakronikoak erabili beharko zituzkeen, hari solte gehiegi uzten zituzten horietakoak. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argiki adierazi** (6); **argiki aipatzen** (3); **argiki azaldu** (3); **argiki erakusten du** (7); **argiki erakutsi** (3); **argiki erran** (9); **borondatea argiki adierazten** (4); **den argiki** (3); **ere argiki** (3)

---

argikono ik **argi 5**.

---

argikoroa ik **argi 6**.

---

argikuntza *iz* kaleetan eta, argitzeko erabiltzen diren argien multzoa.

Han argindarrik ez geneukanez, gaueko **argikuntza** oro gasezko argiz egiten zen. Aitor Arana

---

argilauso *iz* lausoa den argia.

Lurrunduriko odol arrosakolorezko **argilauso** batek bildu zuen Cyril Tourner. Juan Garzia

Lurrunduriko odol arrosakolorezko **argilauso** batek bildu zuen Cyril Tourner. Juan Garzia

---

argilerro ik **argi 8**.

---

argiluma *iz* argizko luma.

Anitzek, ikusi, eta ihes egin zuten, haren buru gainean hegaldatzen ziren **argiluma** urdinxkek izuikaraturik. Juan Garzia

---

argilun ik **argi 2**.

---

argimen *iz* argipena.

Jakina, Joanes Uharte Donibane Garazikoaren Zientzietarako **Argimenen** Azterketan Hezkuntzaz argibideak eman arren (I., II. eta III. ataletan batik bat), ez dira ikasketak gizakiaren bilakaerari dagokion aro berezi batekin soilik uztartzen (haurtzaroarekin, adibidez), aitzitik, gizakiak sailkatzeko ere erabiltzen dira. Askoren artean

Hizkuntzaren errekurtsibitatea "**argimen**" batean (halaxe deitu baitzion Nafarroako Donibane Garazi herrixkako Joanes Uharte Donibanekoa zientzialari eta filosofoak) atzeman nahirik, Chomskyk osagai-egitura eredua perpaus horietatik sortzen den itxurapena "formaldatzen" duten eragiketekin bateratzen du. Itziar Laka

1996. urtean Xabier Kintana-ren eskutik euskarala itzulia izan da lehen aldikotz titulu edo izenburu honekin: "Zientzietarako **argimenen** azterketa", "Klasikoak" sailan, eta 2000an frantsesera laugarren aldikotz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

argimuki *iz* kandela batean, metxa pizten den zatia.

Aita Renteríak beragana hurbiltzen utzi zion; ikusi zuen kandela piztua eskuekin hesitzen eta gero **argimuki** irazekiaren kontra jartzen aurpegia, harik eta haragi gardostuaren usainak kandela astintzera behartu zuen arte, putzada batez estalirik. Juan Garzia

---

argimutil *(orobat **argi mutil** g.er.) iz* kandelaren eta, hedaduraz, edozein argiren euskarria.

Ontzipean edo ohepean jartzeko pizten ote da gero kriseilua? Ez ote **argimutilaren** gainean jartzeko? Elizen arteko biblia

Argimutil bateko kandela isiotuek aurpegia berotzen zioten. Karlos Zabala

Bi **argimutil** zituen pizturik, bata buruaren eta bestea oinen aldean, beren distiraz gela harrigarriro argitzen zutenak. Askoren artean

Urrezko hamar **argimutil** ere egin zituen, agindutako ereduaren arabera, tenpluko sala handian ezartzeko. Elizen arteko biblia

Zazpi adarreko **argimutil** zenbait ageri ziren, argi eternalez izekiak. Juan Garzia

Egin urre garbizko **argimutila**, mailuz landua: haren oin, gerri, kopa, kukulu eta lore-hostoek gorputz bat bera egingo dute. Elizen arteko biblia

Argimutilaren gerritik ateratzen ziren sei besoetariko bakoitzak almendra-lore gisako hiru kopa zituen, beren kukulu, lore-hosto eta guzti. Elizen arteko biblia

Aaronek ipiniko ditu kriseiluak **argimutilean**, Jaunaren aurrean etengabe argi egin dezaten. Elizen arteko biblia

Piztu zitzala nire ohearen burualdean zegoen **argimutil** luze baten kandela guztiak, eta zabal zitzala alderik alde ohea inguratzen zuten belus beltzezko errezel parpailadunak. Koro Navarro

Argimutil sakratuan dirdir dagien kriseilua bezalako aurpegi ederra gorputz lirainean. Elizen arteko biblia

Brontzezko **argimutil** bat zen, zahar itxurakoa eta ez oso garbia. Alberto Ladron Arana

Eskainiriko ogiak mahai sakratuan jartzen dituzte, eta arratsaldero pizten urrezko **argimutila** eta beronen kriseiluak. Elizen arteko biblia

Menuet fantastikoren bat dantzatzen ari ote dira, **argimutil** espektro, hilerriren bateko altzifreen artean, bide hilobiz inguratuetan zehar, ilargiaren argitan? Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argimutil bat (6)

argimutila bere (4); **urre garbizko argimutila** (4)

argimutilaren gainean (4); **argimutilaren gerritik ateratzen** (4)

zuziaren argimutiletik (3)

---

arginabar *iz* eguzkia irten baino lehen edo sartu ondoren gertatzen den argitasuna.

Arginabarra beherantz zetorren astiro-astiro, izarrez piztutako hosto bat bezala. Karlos Linazasoro

Arratseko **arginabarra** hasiko zen bere errauts geldoa etxeen artean bahetzen, teilatuegalak ezkutatuz, teilatuak ezabatuz. Jon Alonso

Biharamuneko **arginabarrarekin** Ontziolako horma letra gorri handiz pintatuta agertu zen:[...]. Joseba Sarrionandia

Argindarraren fakturaren kalkulua eginda ordaintzea egokitzen zaidana: [...]. Harkaitz Cano

Bigarren **arginabarraren** hasiera aldera, bere goardako aingeruak tarteko irtenbide bat iradoki zion. Juan Garzia

Oinutsik, panazko galtza beltzak, alkandora zulatua, begi makalduak zabal zabalik, ura eta odola zeriola **arginabarrean**. Joseba Sarrionandia

---

argindar *(ETCn **8794** agerraldi orobat **argi indar** g.er.)* **1** *iz* elektrizitatea.

Hura bezalako itsasontzi baten makina-aretoak lantegi ongi antolatu baten neurria dauka, batez ere diesel-motor handientzako egokitua, gehi **argindar**, ur-berokuntza eta aireztapen-instalazioak. Joxe Austin Arrieta

Euskadin kontsumitzen den **argindarra** edo elektrizitatea tokian berean ekoizten entseatzea da euskal gobernuaren xedea. Herria

Saharaz behera, Afrika osoak Poloniak baino errepide gutxiago ditu; biztanleriaren %20ak baino gutxiago du **argindarra** eta Tokio hiriaren metropoli-aldean Afrika osoan baino telefono linea gehiago daude. Iñaki Heras

Campeche, dena den, hiria da oraindik, giza kolonia bat, bizarra kentzeko **argindarra** behintzat baduena, baita telefonoa ere. Joxe Austin Arrieta

Palenquek badu diesel-motor bat, **argindarra** ematen duena. Joxe Austin Arrieta

Argindarra ekoizten duten konpainiek Europako Batasunetik milaka milioi euro jasoko dituzte "opari". Berria - Gaiak

Gobernu asko hausnarketa egiten ari dira egun **argindarra** sortzeko egitasmoen inguruan. Berria - Harian

Argindarra sortzen ari zaigun dinamoa aurkitu behar genuke. Aitor Arana

Gauez ezin izaten zuen idatzi, naziek **argindarra** kentzen zuten ilunabarrero uharte guztian. Harkaitz Cano

Bizkaiko herriko biztanleak haserre daude Iberdrolarekin, eta **argindarra** askotan eteten dela nabarmendu dute. Berria - Harian

Hiriburuko kaleak hutsik zeuden, eta **argindarra** eten egin zuten. Berria - Mundua

Telefonoa eta **argindarra**, dena egon zela etenik bizpahiru orduz. Anjel Lertxundi

Baserri bakanak ageri dira **argindarraren** burdinazko dorre itsusien ondoan. Pako Aristi

Haize ufada indartsuek **argindarraren** sarean klate larriak egin zituzten eta, ondorioz,gutxienez 50.000 bizilagun **argindarrik** gabe geratu ziren atzo. Berria - Mundua

Gero, herri galduetara ere aurrerapena iristen hasi zenean ura eta **argindarra** eraman zituzten etxeetara. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumitzen den **argindarraren** herena sortzen dugu urtean Garoñan. Berria - Harian

Kristalak jarri zituzten, ura sartu, **argindarraren** instalazioa berritu, hormak margotu eta altzari berriak sartu. Pako Aristi

Etxeak harripean gelditu ziren, bideak hondatuta, dendak eta ospitaleak gehienak hankaz gora, telefonorik gabe, uraren eta **argindarraren** sarea hondatua. Pako Aristi

Jainkoak egin omen zituen eguna eta gaua, argia eta iluna; hemen, berriz, **argindarraren** giltzari eragiten dion esku guztiahaldunak bereizten ditu jolasaren eta atsedenaren munduak, argi-itzaltze horrexek markatzen baitu haurren loaren hastapena. Xabier Mendiguren Elizegi

Nonbait, berdin zitzaion butano banatzailearekin edo **argindarraren** gastua neurtzera zetorrenarekin oheratzea. Aitor Arana

Argindarraren bi handikien arteko borroka zegoen honen atzean: Thomas A. Harkaitz Cano

1835ean **argindarrezko** telegrafoa asmatu zuen, eta handik 3 urte, bere izena gorde duen alfabetoaren kodigoa. Pello Zabala

Zer gertatzen da? Oraindik ere ez duzue **argindarrik**? Ander Irizar

Argindarrik ez zenean, mundua samurragoa zen, eta deskantsatuagoa. Pako Aristi

Han **argindarrik** ez geneukanez, gaueko argikuntza oro gasezko argiz egiten zen. Aitor Arana

Ez zuen **argindarrik**, petrolio-lanparak baizik. Fernando Rey

Gaueko bederatzi t'erdietan joan zen argia eta 25 orduz egon zen hiria **argindarrik** gabe. Harkaitz Cano

Orain gogoratzen naiz, gainera, Itsasondon Murumendiko puntaren azpian mendian galdutako azken auzoa dela Lizardi, **argindarrik** ere iristen ez zen bazter erdi ahaztu bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Argindarrik eta komunik gabeko etxeak, zalgurdiak, freskerak, edota harraskak izatetik, XX. mendearen erdi aldera, berriz, hozkailuak, autoak, telebista, ontzi eta arropa-garbigailuak, eta abar izatera aldaketa handia gertatu baitzen. Iñaki Heras

2 (hitz elkartuetan)

Argindar instalazio zahar asko dagoelako edo ez dakit zergatik, baina suteak ugari dira. Harkaitz Cano

Kanpoko **argindar** sorgailuak huts eginez gero, [...]. Berria - Harian

Azpiegituren zaintza egokiak saihestu egingo luke zuhaitzak eta bestelako objektuak kableen gainera erori eta **argindar** zerbitzua etetea. Berria - Euskal Herria

Eskualdeko **argindar** hornikuntza zentral nagusiaren ondoan erori ziren koheteak. Berria - Mundua

Ur eta **argindar** hornikuntzarako azpiegiturak txikituak dira, dozenaka etxe erabat suntsituak edo andeatuak. Berria - Mundua

Mugurdiondo bakarra ezagutzen zuten Orotzen, Papelerako **argindar**-zentralaren ondoan hazten zena. Iban Zaldua

Horrez gain, neurriak hartzeko eskatu dio enpresari: alde batetik, **argindar** linearen babes eremua garbitzeko, "horrelako gorabeherarik berriro gerta ez dadin". Berria - Harian

Langile hauek Irakeko **argindar** sarea berriz ostazeko lanetan jarduten zuten gehienik, baina hauetatik bi bahitu eta hil egin ondoren, enpresa errusiarrek alde egin zuten Iraketik, iragan maiatzean. Berria - Mundua

Ez dago **argindar** haririk atezaina inongo auto gidarirekin lotzen duenik. Josu Zabaleta

Hiriko **argindar** kableetan eta semaforo altuetan, nekez harrapa daitezkeen lekuetan, zapata nahiz kirol-oinetako pareak ikusten dira nonahi zintzilik. Harkaitz Cano

Zubi hautsiak; iturri agortuak; **argindar**-kablerik gabeko alferrikako zutoinak. Juan Luis Zabala

Elurtearen ondorioz zuhaitzak eta adarrak erori ziren **argindar** kableen gainera. Berria - Euskal Herria

Kanpoan bizi izaten zen gure osaba batek abisatu zigun behin, egun seinalatu batean etorriko zela gure etxera eta irratia ekarriko zuela, eta guk, ordurako, kobrezko hari bat jarrita edukitzeko gure etxearen gainaldean zegoen **argindar** postera. Pako Aristi

Beste leku askotan ere berdintsu: joan den mendean itxi ziren BATAN fabrikak, gero errota edo **argindar** iturri bihurtu ziren. Patziku Perurena

Kontua da nire ohepean zegoela **argindar**-hartunea. Urtzi Urrutikoetxea

Edisonek bere aurkariaren **argindar** sistema hobesten zuen exekuzioetarako, korronte alternoa heriotzarekin lotuz gero, etxe erabilerarako arriskutsuegitzat jo eta bere korronte zuzena hobetsi eta orokortuko zelakoan. Harkaitz Cano

Makina batek **argindar** sistemako katenaria jo eta kaltetu zuenean. Berria - Euskal Herria

Argindar ekoizgune bat eta eraikin hau gerizatzen zuten bederatzi zaindari hil zituzten. Berria - Mundua

Bai Irungo **argindar** dorrea, bai Bujaruelokoa, Red Electrica Española enpresarenak dira biak. Berria - Euskal Herria

Industria Sailaren irudiko, **argindar** enpresak ez du bete goi tentsioko sare elektrikoen araudia. Berria - Euskal Herria

Iberdueroren aurka idatziriko testu bitxi bat, bere lantegian sare trifasikoa jartzen amaitzen ez zuelako **argindar** enpresa gaitzetsiz. Berria - Kultura

Parisko gobernuak udaberrian baiezkoa eman ondoren, "hirugarren belaunaldi" nuklearraren aldeko apustua baieztatu zuen asteazkenean EDF **argindar** konpainiak. Berria - Gaiak

Argindar eskasia dela eta, hainbat enpresa itxi behar izan dituzte Kuban. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argindar barik (4); **argindar dorre batean** (4); **argindar enpresa** (9); **argindar enpresak** (16); **argindar enpresaren** (7); **argindar enpresei** (3); **argindar enpresek** (3); **argindar eta gas** (6); **argindar etena** (4); **argindar hornikuntza** (3); **argindar hornikuntzan** (3); **argindar kable** (3); **argindar konpainia** (6); **argindar konpainiak** (9); **argindar sarea** (3); **argindar sistemako** (3); **argindar taldeak** (3); **bi argindar dorretan** (3); **da argindar** (3); **dago argindar** (3); **du argindar** (3); **duen argindar** (3); **edf argindar** (5); **endesa argindar** (3); **frantziako argindar** (5); **gas eta argindar** (3); **milioi kilowatt argindar** (4); **zuen argindar** (3)

argindarra behar (3); **argindarra ekoizteko** (5); **argindarra ere** (3); **argindarra moztu** (8); **argindarra sortuko** (3); **da argindarra** (3); **du argindarra** (3); **edo argindarra** (3); **nuklearra argindarra** (3); **ura eta argindarra** (6); **zen argindarra** (3)

kontsumitzen den argindarraren (5)

argindarrik ez (7); **argindarrik gabe egon** (4); **argindarrik gabe geratu** (8); **argindarrik gabe utzi** (10); **argindarrik gabeko** (3); **etxe argindarrik gabe** (6); **etxetan argindarrik gabe** (3); **ez argindarrik** (3); **inguru argindarrik gabe** (3); **zeuden argindarrik gabe** (3)

---

argintza ik **hargintza**.

---

argioilar ik **argi 9**.

---

argiontzi *(ETCn 297 agerraldi)* **1** *iz* lanpara, argia artifizialki ematen duen tresna edo lanabesa.

Berrogeita hamar eskailera mailak jaitsirik, hobi bat ikusiko duzu, eta horren barnean **argiontzi** bat pizturik. Patxi Zubizarreta

Antzerki-emanaldiak, dantza-saioak; loralegia argi-jario egoten da gau osoan, **argiontzi** eta kriseiluz apaindurik, eta musikak bazter guztietara hedatzen du bere soinua. Jose Morales

Kandelaren garrak astindu bat jo zuen gelan; **argiontzi** bat zegoen han, oso su txikikoa, eta errezelak mugitu egin ziren Ontziak ziren, ibai batean behera; eta ibaiko urak, **argiontzi** batzuen ñirñir urduriaz pikardaturik, terrazen beheko zimentarriak bustitzeraino iristen ziren. Koro Navarro

Soilik ni nengoen odol hotzean, eta horri esker hartu ahal izan nuen oraino bizturik zen **argiontzi** bat itzaltzera joan eta lurrera botatzeko parada. Jon Muñoz

Argiontzia ketan dago -esan zuen Sergeik. Elizen arteko biblia

Martinek gau-mahaiaren gainean utzi zuen **argiontzia**. Koro Navarro

Argiontzia eskuratu, eta itzali egingo duzu. Patxi Zubizarreta

Bi minutu geroago itzuli zen, eskuan **argiontzia** zekarrela. Jose Morales

Gazteluan oro lasai zegoela ziurtatu ondoren; **argiontzia** aldean, eta orenari eta aldarteari zegokion beztiduraz, egin nion lehen ikustaldia zure ikasleari. Jon Muñoz

Pizturik uzten zituen **argiontziak**, kriseiluak eta kandelak, ez baitzuen bere eskuz itzali nahi betiko argiaren ezaugarri den distira **Argiontziaren** gasa erretzen zen tabernako egurats oraindik esnatu gabean; trapu ahaztu bat eta bezperako kartak jaso gabe ageri ziren mahaietan, haize korrontea sartzen zen ate handi zabaldutik eta freskura pixka bat zekarkion ardo usainezko giro bero hertsi hari. Askoren artean

Izan ere, kotxeko bazter batean, iluntasunean uzkurturik, zerbait txikia zegoen, geldia baina biziduna, eta **argiontziaren** izpi zeihar batek begi ireki bat distirarazi zuen. Jose Morales

Gauez, Brunelleschi edo Manetti Uccellorekin ikastera zetozenean, loak hartzen zuen, gauerdia jorik, zuzen elkargurutzatuen oinean, **argiontziaren** pean hedatzen zen itzal-inguruan. Juan Garzia

Amak onartu egin zuen semearen proposamena, baina **argiontziari** garbitu bat ematen hasi zelarik, animaleko jeinu muturbeltz bat agertu zitzaion, eta esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Argiontziek geldi-geldirik hedatzen zuten beren argi horixka. Jose Morales

Argiontziekiko zaldi-kotxeak, bi jendarme sarreran, zaldizainen oihuak urrun; hitz batean, behar bezala zegoen dena. Jose Morales

Kotxea lando zarpaildu zahar bat zen, eta soka batekin lotuak zeuzkan beira bat eta **argiontzietako** bat. Koro Navarro

Gogo beroz etxean sartuz, Jainkoaren izenean olioa eskatu zuen frantsesez elizako **argiontzirako**. Askoren artean

Bina lagun hartu, eta, iluntasunean, sarrerako atetzarraren gainean kulunkatzen zen **argiontzirantz** abiatu ziren. Jose Morales

Eta jadanik zaldiak uztartzen ari dira **argiontzirik** gabeko kotxe beltzean. Jose Morales

Judas, beraz, tenpluko gudu-taldea eta apaizburu eta fariseuen guardak harturik, hara joan zen. Armaturik eta zuzi eta **argiontziz** horniturik zihoazen. Elizen arteko biblia

2 (izenondoekin eta izenlagunekin)

Morroiak arkupeetan barna jarraitu zuen, kantoi batetik sartu, etxe handi batean ateari bultza egin eta **argiontzi** handi batek argituriko atari dotore batean sartu zen. Koro Navarro

Argiontzi erraldoi baten antzera, ilargiak gainetik dirdiratzen zuen, bare-barea zegoen itsasoa argituz. Elena Touyarou

Aladin eta **argiontzi** miresgarria. Patxi Zubizarreta

Argiontzi ezkutu batek papera eta eskularrurik gabeko esku zuriak argiztatu zituen. Jose Morales

Petroliozko **argiontzi** batzuk zeuden, egongela eta kabinetea argitzeko. Josu Zabaleta

Kerosenozko **argiontzia** zehar-hagetako batetik esekirik zegoen Sukkoth-eko txabola sugar bihurtu zen, paperezko **argiontzi** bat balitz bezala. Juan Garzia

Arkupeetan, petroliozko **argiontzi** triste batzuen argitan, zenbait buruzagi karlista paseoan zebilen. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

Beraz, pertsona ahulek distira egiten jakin behar dute, **argiontzi**-paper izaten argiaren gainetik. Xabier Paya

Gas **argiontziak** kale hartako etxe bat nabarmentzen zuen gainerakoetatik. Karlos Zabala

Gas **argiontziak** bakanak ziren, eta korridoreak lotan zeuden, isilik, herrixka bateko bazter bat ziruditela, probintzia osoa ohean dagoenean. Karlos Zabala

Aurrera begira zihoan, gas **argiontzien** bi lerro azkengabeei erreparatuz. Karlos Zabala

Han, egurats hertsi hartan, zenbait gas **argiontziren** ilunantzean, arnasa garbiaren freskura aurkitzen zuen berriz. Karlos Zabala

Osoki ilunpean zen karrikako argi bakarra ostatuko ate gainean dilindan zegoen olio **argiontzitik** zetorren. Elena Touyarou

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argiontzi bat** (6); **argiontzi honen jabe** (3); **gas argiontzi** (4); **zen argiontzi** (3); **zeure eta argiontzi** (3)
> **argiontzia hartu** (3); **zuen argiontzia** (4)
> **gas argiontziak** (3)
> **gas argiontzien** (3)
> **argiontziko jeinuari** (3)

---

argipe *iz* argiaren azpikoa.

Sugeak, ardiak, hormona sintetikoz zein abere irinez hazi urde gurintsuak, erreformako ahari kankail trapatuak buru zoko haserretuan nituen batez, ene probintziara sartzeko borobilean, egiazko haluzinazioa ukan nuen: kotxearen **argipe** zurian ardiak alhan mirets nitzakeen, ronpuinaren belardian xaloki eta artzainik gabe. Itxaro Borda

---

argipean *adlag* argiaren azpian.

Barnealdea zeta zeru-urdinez forratua zuen kotxe baten atzealdean jarririk, leiho lausotuetan barrena hirira begiratzen zuen: arrain lodi baten tankera zeukan hiriak **argipean**. Xabier Olarra

Galeriatik sartzen den **argipean** ziegakideen oinetakoak agertu zaizkit ate ondoan paratuak, ohera beha. Koldo Izagirre

Eta, ikusirik nola zetozen gizon haiek, zuzi izeki berrien **argipean** laztu, larritu eta asaldatu ginen, nola usoa aztorearen ikusteaz. Joan Mari Irigoien

Aurpegi gorrituek distira egiten zuten **argipean**. Juan Kruz Igerabide

Linterna baten **argipean** lagunen aurpegiak ikusi dituzu, zurea bezala emozioaren dirdirak argituta, eta barrezka hasi zarete denak. Xabier Mendiguren Elizegi

Morrosko sendoek arrautza kaxak, gazta otarreak, gurin saskiak jaso eta enkantearen pabiloira zeramatzaten, non enplegatu txanodun batzuek oharrak hartzen baitzituzten beren koadernoetan, gasaren **argipean**. Karlos Zabala

Eta gainera, eta hauxe zen garrantzizkoena, baliagarri izango zitzaiola, horrenbestez, beste oroitzapen guztiak ezabatuko zituen irudi harexen **argipean** alde egiteko bizitik. Juan Garzia

Liburukotea hartu dut esku artean berriz ere, Eñautek irakurtzeko propio daukan besaulkian, irakurtzeko propio dagoen oinarridun lanpararen **argipean**. Sonia Gonzalez

Maimonen esoterismoaren **argipean**, nola ulertu behar ditugu haren ideia filosofiko eta teologikoak? Xabier Kintana

Argipean begiztatu zituen, lau aukeratzeko. Joxemari Urteaga

Eta han zen azken aulki salbatzailea, distiratsu farolen **argipean**, zu gerturatu zinen arte. Lander Garro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baten argipean** (5); **eguzkiaren argipean** (4); **ilargiaren argipean** (4); **kandelen argipean** (4); **lanpararen argipean** (3)

---

argipeko *izlag* argiaren azpikoa.

Iluntasunetik beste zaldi batzuen irrintziek erantzun zioten, eta apatx-zarata gorrak ondoren; ustekabean hiru zaldizko agertu ziren ilargiaren **argipeko** espektro hegadunen antzera, eta mendebalderantz desagertu ziren. Agustin Otsoa

Shalimareko mahai bakoitzaren gainean, etxearen ohiturari jarraiki, kandela bat zegoen piztuta, "kandela-**argipeko** afari" giroa emanez otorduari. Jon Muñoz

---

argipen **1** *iz* argitzea; azalpena.

Enekin egon zinen artean, behin ere ez nizun ukatu bertset baten edo gure doktoreen testu interesgarriren baten **argipena**. Xabier Kintana

Zuzenketa gehienek ez dute Jaurlaritzaren egitasmoaren edukian aldaketa nabarmenik eragiten, artikuluen zehaztapen, **argipen** edo azalpen hutsak direlako. Berria - Euskal Herria

EILAS, ELA eta LAB sindikatuek **argipenak** eskatu zizkioten atzo Anjeles Iztuetari. Berria - Ekonomia

Beraz, gure **argipenak** soilik bihurtzen du ulergarria Geometriaren ahalgarritasuna, hau apriorizko ezagutza sintetikoa den aldetik. Ibon Uribarri

Horregatik, apriorizko adigaiak objektuei lotu ahal izateko eraren **argipenari** beren dedukzio transzendentala deitzen diot. Ibon Uribarri

Adimen hutsaren oinarri-esakune batetik abiatuta erakutsi nahi dut gure hautemapenen izaerak halako **argipena** ahalbidetzen duela. Ibon Uribarri

Azken buruan, planteaturiko arazoek ikerketaren jomuga zientzia-ezagutzaren **argipenera** baino gehiago zientzia-praktika errealaren azterketara bideratzen dute. Askoren artean

Maitasun kontzeptuaren **argipenetik** gizakira jo behar da, bizidunarengana. Jenaro Garate

PSEk behin baino gehiagotan diru horren inguruko azalpenak eskatu dituela nabarmendu zuen, eta inoiz ez zaiola behar bezalako **argipenik** eman. Berria - Euskal Herria

Gauza arrunt eta hutsalek ez dute **argipenik** behar. Anjel Lertxundi

2 (hitz elkartuetan)

Ezagutza horiek adigai horren **argipen**-era jakin baten aurresuposiziopean baino ez izatea ahalgarriak. Ibon Uribarri

Beraz, materialismoa alferrikakoa baldin bada nire izatearen **argipen**-era gisa, orduan espiritualismoa ere horretarako askieza da. Ibon Uribarri

Ondorioei dagokienez, **argipen**-oinarriaren osotasuna dira hipotesian onartutakora bidaltzen gaituztenak. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argipen era** (3)
> **agerpenen argipenean** (3)

---

argiratu, argira(tu), argiratzen da/du *ad.* argira atera, argira ekarri.

Eraikuntza-ahaidetasuna, lehenik, zeren, zelula **argiratu** denetik, organismo bizi oro "klon"tzat jo baita, zelula-koloniatzat. Juan Garzia

Urte batzuetan, ondoretasunaren ezaugarri nagusiak **argiratu** ziren, genetikaren "legeak" izango zirenak. Juan Garzia

Pasteur gabe ere, **argiratuko** zen, noski, eritasun kutsagarrietan mikrobioek jokatzen duten papera. Juan Garzia

K.o. 1798a bezain berandu Konstantinoplako greziar prentsak Jerusalemgo patriarkaren adierazpen bat **argiratu** zuen, non esaten baitzien bere irakurleei. Iñaki Mendiguren

---

argiratugabe *izond* argira atera ez dena.

136 kontakizunen gehiengoa orain arte **argiratugabea** da. Berria - Kultura

---

argiratzaile *iz* argitaratzailea.

Argiratzaileak : Liburuaren edizioaz bederatzi editore arduratu dira, eta gertakari tamalgarri haiez liburua egingo zela jakinda, elkartasun adierazpena egin nahi zuten editoreek. Berria - Euskal Herria

---

argiro *adlag* argi, zalantzarik gabe.

Era berean Harengan baztertu behar da, halaber, diren izakiekiko antz guztia, orok dakitenez eta Profeten liburuetan **argiro** erakutsi denez, hitz hauekin: [...]. Xabier Kintana

Jainkoaren gorpuztasunaren teoria ukatzea eta sorkariekiko antzik ez daukala eta haien grinapeko loturarik gabea dela, guztiei **argiro** azaldu beharreko gaiak dira, nori bere ahalmenaren arabera. Xabier Kintana

---

argisenti *iz* egunsentia.

-Argisentian nentorrelarik nire ardiekin, negarra ikusi dizut begietan. Anjel Lertxundi

Horrela Idako mendi garaietatik **argisentian** su dispertsoak ikusten ei dira eta gero globo bakarrean bezala batzen eta diskoa osatzen ei dute. Xabier Amuriza

---

argitaldari *iz* argitaratzailea; argitaletxea.

Egile biek -eta, ziurrenik, baita haien agente eta **argitaldariek** ere- bestearen nobela irakurri ondoren erabaki zuten, Martelek brasildar nobela inspirazio-iturri izan zela onartu arren, zerikusi gutxi zutela obra biek haien artean: [...]. Iban Zaldua

Bi azalena oso ondo zegoen, oso demokratikoa zen, baina, **argitaldariak** ohartarazi zigunez, barra-kodea nonbait jarri behar zen, eta azal hura kontrazal bihurtuko zen halabeharrez. Iban Zaldua

Ingelesetik gaztelerara Euzko Gaztedi-Resistencia Vasca-k itzuli eta Gudari **argitaldariak** 1963an ateratakoa. Jokin Urain

Max Perkins **argitaldariaren** erantzuna ekainaren 17an idatzi da. Edorta Jimenez

'Dama txakurtxoduna'-ren itzulpenaren lehenengo zatia argitaratu zuen, soilik, Baionako Euskal Eleak hilabetekariaren bigarren zenbakian; tamalez, 1940. urtea zen eta nazien inbasioak betirako zapuztu zituen **argitaldarien** asmoak. Iban Zaldua

Pentsatzen dut Bernardok liburu bat eramango ziola **argitaldariari** . Pello Salaburu

Liburu bat ona den edo ez esateko, argitaratu behar den edo ez erabakitzeko, **argitaldari** epaileak behar dira eta horiek argitaratuko dituzten liburu guztiek irizpide berdinak izango dituzte. Ana Urkiza

---

argitaldaritza *iz* argitaldarien sistema.

Euskal **argitaldaritzaren** errealitatean oinarritzen zarela esan nahi duzu? Berria - Kultura

Etzuen lan txarra ez-eta errexa: Guy de Maupassant frantses idazlearen "Contes fantastiques Complets" lana du itzuli, Fantasiazko Ipuinak emanez izena, Ibarzabal **argitaldaritzan** . Herria

---

argitaldi ik **argitaraldi**.

---

argitaletxe *(ETCn 22.540 agerraldi)* **1** *iz* liburuak eta bestelako izkribuak inprentaren bidez argitaratzen dituen etxea edo enpresa. ik **argitaldari**; **editorial**.

Nahiz eta literatura erotikoaren boom-a pixka bat apaldua egon, Txalaparta **argitaletxeak** ez du bazterrean utzia Literotura, literatura erotikoari eskainitako saila. Berria - Kultura

Orri zuri baten aurrean paratuz gero, agente hauek, zuzenekoak zein zeharkakoak, hogeiko zerrenda luzea osatzen dute: idazleak, **argitaletxeak** , liburutegiak, liburudendak, ikastetxeak, komunikabideak... Berria - Kultura

Argitaletxeak bere independentzia defenditu eta informazioaren erabilera kritikatu du. Berria - Kultura

Ohar bat utzi nion: **argitaletxetik** deitu zidatela bertako etxe batekoekin hitz egitera joateko. Ramon Saizarbitoria

Gogoratu behar dugu Jakin **argitaletxean** XX. mendeko filosofiaren adibide ugari euskaratu direla azken urteotan. Askoren artean

Hori ere ez zitzaigun arraroa iruditu, gure curriculuma eta **argitaletxearen** iragan trotskista ezagututa. Iban Zaldua

1936an eman zuen, azkenik, amaitutzat, eta bere lagun Paul Nizani igorri zion, Gallimard **argitaletxera** eraman zezan. Monika Etxebarria

Beharrik **argitaletxeak** beste sarrera bat zuen atzeko alde hartatik. Jon Alonso

Gogoan izan literatura subentzionatua dela, eta iristen zaien guztia onartzen dutela **argitaletxeek** . Bernardo Atxaga

Alaitasunez idazten nituen, baita idazten nuena Italo Calvino nire adiskideari gustatzen zitzaiolako ere; hortaz, Italori bidaltzen nizkion, Italok bere **argitaletxera** bidaltzen zituen, eta gero diru pixka bat ailegatzen zitzaidan, gaur eguneko euroetan ziento bakar batzuk izanen zirenak. Pello Lizarralde

Eta hojaldrea liburua bada, labea nolabait ere **argitaletxea** litzateke, edo, lehentxoago, inprimategia. Patxi Zubizarreta

Argitaletxez argitaletxe ibili eta Pierre-Jules Hetzelekin egin zuen topo, etsitzekotan zegoela. Karlos Zabala

Haren obra itzultzeko interesaturik zeuden atzerriko **argitaletxeek** ere atzera jo ohi zuten, lege arazoak etor zekizkiekeelako. Joxean Agirre

Bere **argitaletxean** haren lan bi argitaratu dituztela eta, berak zuzenean ezagutu zuela eta oso oroitzapen ona duela, itxura denez, Bernardo Eslovenian izan baitzen. Edorta Jimenez

Bistan da euskaraz argitaratzeak eta euskal **argitaletxeek** laguntzak behar dituztela, hori ez dut nik ukatuko, baina zirkuluek beti behar lukete irtenbidetxoren bat kontuak normalizatu nahi baditugu, eta ezin dira hain itxiak izan. Pello Salaburu

Marrazkiak egiten zituen hainbat **argitaletxerentzat** , haur ipuinetarako batez ere. Xabier Montoia

Susa **argitaletxeak** kaleratu zuen haren liburu bat, orain dozena bat urte baino gehiago, uste dut... Paddy Rekalde

Alaitasunez idazten nituen, baita idazten nuena Italo Calvino nire adiskideari gustatzen zitzaiolako ere; hortaz, Italori bidaltzen nizkion, Italok bere **argitaletxera** bidaltzen

zituen, eta gero diru pixka bat ailegatzen zitzaidan, gaur eguneko euroetan ziento bakar batzuk izanen zirenak. Fernando Rey

Harpidetza zela eta irten zen aurrera Lur **argitaletxea** eta, berarekin batera, gure berpizte kulturalaren hastapeneko emaitza interesgarrienak. Hasier Etxeberria

Arazoa zen, gehitu zuen, iragarpen-zutabe horiek gabe labur samar geratzen zitzaiola liburua, eta ez zekiela **argitaletxean** onartuko ote zioten. Iban Zaldua

Giro ezinago apropos horretan, bada, ekiten diote **argitaletxekoek** bi idazleen aurkezpenak egiteari. Karlos Linazasoro

Gainera, egilea bera izan daiteke konplotaren partaide (eta baita **argitaletxea** ere, nola ez: konspirazionistentzat susmagarritasun iturri agortezin dira aldizkariak, egunkariak, telebistak, irratiak eta komunikabideak oro). Iban Zaldua

Baina, **argitaletxeetan** bezala, egunkarietan ere, badago besterena nork irakurri. Iñigo Aranbarri

Eskerrak eman nahi dizkiet bai idazleari eta baita Alberdania **argitaletxeari** liburu hau argitaratzeko eskaini dizkiguten erraztasun guztiengatik. Anjel Lertxundi

Vidalek berak egiten bide zituen editore lanak, eta bere idazkari pertsonalak -Inez Orgaz izena zuen, oker ez banago- kudeatzen zuen **argitaletxea**. Harkaitz Cano

2 (izenondoekin)

Hori guztia zela eta, Hendricks **argitaletxe** apal baina finak egin zigun proposamena, bitxia izanda ere, ez zitzaigun hain harrigarria iruditu: 2000. urtea ospatzeko edo, bion artean idatzitako liburu bat nahi bide zuten. Iban Zaldua

Frantziako **argitaletxe** on baten jabe ei zen, aita zenak esaten zigunez, eta izkribuak zuzenean irakurtzea gustatzen ei zitzaion, argitaratu aurretik. Joxemari Urteaga

Argitaletxe txiki bat zuen, Urdaibai inguruko gaiena, eta egunkaria zoli ibili zen. Iñigo Aranbarri

Pasternaken Zivago Doktorea Italiako **argitaletxe** komunista batek argitaratu zuen, eragozpen eta zailtasun handiz, dena dela. Felipe Juaristi

Idatzi zuen, arin idatzi ere, nobela hura, eta testua **argitaletxe** boteretsuenetara bidali zuen, egiten zioten eskaintzarik interesgarriena onartzeko asmoz. Jon Arretxe

Garaitsu hartan, Aguilar **argitaletxe** erdaldunaren eskaintza jaso zuen Lekuonak bere poema batzuk ele bitan argitaratzeko. Berria - Harian

Iru Errege **argitaletxe** berriak du liburu hau agertzen. Herria

Balkan Txiki **argitaletxe** artesanala zen, produkzio laburra baina zaindua kaleratzen zuena, katalogo aski interesgarri baten jabe, zeinean, orokorrean, normalean "interesgarri" eta are "oso interesgarri" jotzen ziren idazleak nabarmentzen ziren. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argitaletxe bat** (6); **argitaletxe batean** (6); **argitaletxe batek** (10); **argitaletxe batekin** (7); **argitaletxe baten** (5); **argitaletxe batzuk** (3); **argitaletxe berean** (5); **argitaletxe berriak** (3); **argitaletxe horrek** (3); **euskal argitaletxe** (4)

---

argitalgintza *iz* argitaratze lana.

Euskal kulturgintzan edo, bederen, **argitalgintzan** monopolio egoeratik hurbil gaude, nire iduriko. "Asturierazko **argitalgintza** oso egoera prekarioan zegoen Solarri egokitu zitzaion garaian", azaldu du Xuan Bellok. Berria - Kultura

---

argitalpen *(ETCn **12.798** agerraldi; orobat **argitarapen 376** agerraldi)* **1** *iz* argitaratzea. ik **argitaraldi**.

Konfesoreen Eskuliburua, 70 urtez 81 **argitalpen** izan zituena. Piarres Xarriton

Kritikak behin betikotzat hartzen duen **argitalpen** hau hartu dugu guk ere, itzulpen honetarako oinarri gisa. Josu Zabaleta

Antolatzaileen artean bat bera ere ez zegoen euskaraz zekienik eta **argitalpen** guztiak, espainol eta frantses hutsez argitaratu dituzte. Hasier Etxeberria

Horrela agertu zen Arima hilak-en bigarren tomoaren **argitalpen** guztietan. Jose Morales

Idazlearen bizitzari eta obrari buruzko datu ugari eta zehatzak aurkituko ditu bi **argitalpen** horietan, baita, besteak beste, Juan Kruz Igerabidek "Longainapetik jaioak" izenburuarekin Longaina obrari eginiko hitzaurre ederra ere. Jose Morales

Argitalpen honen ardura Mirjam Pressler alemaniar idazle eta itzultzaileak hartu zuen; Otto Franken **argitalpenean** oinarriturik, Anneren beraren lehenengo eta bigarren bertsioetatik hartutako zatiak gehituz burutu zuen. Josu Zabaleta

Mapak zein beste lagungarriak berriki ingelesez atera den **argitalpenari** zor dizkiogu: *Francis of Assisi*. Askoren artean

Ikasbidea, jakina, atzerritarrek euskaraz ikas zezaten egin zen, eta **argitalpen** ugari izan zituen. Koldo Zuazo

Ignazio Omaetxebarriak prestaturiko **argitalpenaz** baliatu gara: Escritos de Santa Clara y documentos complementarios (BAC, Madril, 1999). Askoren artean

Michael Lightner IEEEko buruaren esanetan, **argitalpenek** "bizi diren lekuko arauak onartu behar dituzte". Berria - Gaiak

Lanetik etxera zihoazen neska-mutil gaztez beterik zeuden Westmoreland Streeteko espaloiak, eta umegorri zarpailtsu batzuk zebiltzan, hara eta hona lasterka, arratseko **argitalpenen** izenak oihukatzen. Irene Aldasoro

Izan ere, **argitalpeneko** arduradunen arabera, bera da Freudek tratatu zituen erien artean bizirik geratzen den bakarra. Berria - Harian

Patologiak ere zerrendatu zituen bigarren **argitalpeneko** bigarren atalean. Askoren artean

Ordu arte ez zuten behin ere elkar ikusi bi nafar aipatuek eta beren **argitalpenengatik** baizik ez zuten elkar ezagutzen. Piarres Xarriton

Bilduma hau Anne Richter-ek 1980an Marabout argitaletxerako apailatutako "Contes fantastiques complets" **argitalpenetik** hartua da. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

lehen bi **argitalpenetako** akatsak zuzenduta daude hirugarren **argitalpenean**. Berria - Kultura

Ortega-ren kasuan soilik pausatuko gara astiroago: izan ere, Ortega-ri buruzko **argitalpen** berri batzuek eta "pentsalari liberalaren" mitoaren azken aldiko urreberrizteak, haren berrirakurketa kritiko bat galdatzen zuten. Joxe Azurmendi

Argitalpen berriaren prestatzailea, Piarres Charritton hazpandar euskaltzaina, aintzin solasa ere bere gain hartu duena. Herria

Evaristo Bustintza "Kirikiño"ren eta Bernardo Garro "Otxolua"ren lan gehienak **argitalpen** modernoetan irakurtzeko aukera dute gaurko irakurleek. Iñaki Arranz

Lan hori eskaini didate eta nik atsegin handirekin onartu, besteak beste gure liburutegiko irakurleen aretoaren erdian baitago haren potreta eta horko gordailuan baitauzkagu ere Iruñeako diozesiako "Azpilcueta" liburutegi ibiltaria, bai eta haren Obra Osoak eta beste **argitalpen** bereziak. Piarres Xarriton

Liburuak **argitalpen** elebiduna egiteagatik hartu duen bolumenak hautapen grafiko hau murriztera behartzen gaitu. Santiago Iruretagoiena

Artikulua berehala onartu zuten, **argitalpen** berezi bat egin eta sekulako arrakasta izan zuen mundu horretan. Pello Salaburu

Ez da gai izan arau horiek eta hiztegi hori patxadazko **argitalpen** egoki batean denon eskura jartzeko. horretarako, Kant, Fichte eta Schopenhauer-en liburuak erosi zituen, **argitalpen** merke batzuetan. Pello Salaburu

Argitalpen laburtu honen irakurleak testuan aurkitu ez dituen zenbait izen eta gertaerarekin topo egingo du taula hauetan. Iñaki Mendiguren

Lehen bi **argitalpenetako** akatsak zuzenduta daude hirugarren **argitalpenean**. Berria - Kultura

Ildo beretik doa Kajetan Esser ere bere **argitalpen** kritikoan, gutunaren lehen idatzaldiari azpititulu hau ematen baitio: "Penitentziako anaia-arrebei aholkua". XIX. mendearen azkeneraino eta XX.aren hasieraraino itxaron behar izan zen, idazki hauen benetakotasunaren ikerketari eta **argitalpen** kritikoei ekiteko. Askoren artean

Erabat pertsonalak dira nire ikerketak; ez dut begiz joa inolako **argitalpenik**. Jon Muñoz

Hango ia obra guztiak jatorrizko **argitalpenak** ziren. Jon Muñoz

Ez du oraindik erabaki Iturraldek zer egin koadernoarekin, baina 21 poema argitaragabeak ezagutarazteko asmoa du, paperezko **argitalpenean** ezin bada Internet bidezko argitalpen birtualean. Berria - Kultura

Ikerketa-esparru zehatz batean argitaratzen diren aldizkako **argitalpenak** ezagutzeko direktorio hau oso egokia izango zaizu: [...]. Askoren artean

Aurreko **argitalpenetan** agertzen ez zen bertsorik ere eskaintzen du argitalpen berriak. Berria - Kultura

Izan ere, gaztelaniazko **argitalpenetan** noizean behin egiten diren euskarazko artikulu edo aipamenak "ez dira aski" txostenaren egileen arabera: "Euskarazko argitalpen bat bultzatzea edo laguntzea da helburua". Berria - Harian

Itzultzaileak errusierazko **argitalpenetik** harturiko oharra. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan)

Alexandriako liburutegiak bazuen lehiakide bat: Pergamo, beste **argitalpen** -leku handia. Jon Muñoz

Pentsatzen dudana esaterik baldin badut, ia-ia Europako **argitalpen** -lan osoa esterilizazio jarduera da orain, etekinen amesgaiztoak gidatua. Pello Lizarralde

1992an **argitalpen** -zuzendaritza eta kudeaketaren ardura hartu zuen Giltza-Edébé argitaletxean eta bertan dihardu gaur egun ere. Ana Urkiza

Euskal Herriko Unibertsitateko **Argitalpen** Zerbitzua. Koro Navarro

Argitalpen saila izan zuen oso aste gutxitan. Josu Zabaleta

Stephenen **argitalpen** -agente izan zen Margaret, bi urte lehenagoko BBCko programaz geroztik. Xabier Olarra

Hasi liburu zerrendarekin eta bukatu **argitalpen** moduekin, dena tristea eta kaxkarra da. Bernardo Atxaga

Eskerrak ematen dizkiegu **argitalpen** -arduradunei, adeitasun osoz material hori guztia eskura jarri digutelako. Askoren artean

1897 *Paz en la guerra* nobelaren **argitalpen** urtea da. Joxe Azurmendi

Bildumagile oro eskuratzeko irrikan dagoen alea: princeps **argitalpena**. Jon Muñoz

Josi Basterretxea UEUko **argitalpenen** arduradunak esan zuenez, "enpresaren ekonomia edo administrazioari buruzko eskuliburu nahiko tradizionala" da. Berria - Euskal Herria

Boringhieri Zientzia **Argitalpenen** editorea, Turin. Fernando Rey

On-line **argitalpenetan** ere antzeko egoera gertatzen da. Berria - Euskal Herria

4 ***argitalpen digital***

Datozen hilabeteetan liburuaren **argitalpen digitala** egingo dutela aurreratu zuen Joxe Juan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusiak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **argitalpen bat** (8); **argitalpen batean** (6); **argitalpen berezi** (3); **argitalpen berri** (7); **argitalpen berria** (5); **argitalpen berriak** (3); **argitalpen elebidun** (3); **argitalpen hau** (4); **argitalpen honen** (5); **argitalpen honetan** (11); **argitalpen horren** (3); **argitalpen ugari izan** (3); **argitalpen urtea** (40); **argitalpen zerbitzua** (3); **bere argitalpen** (3); **beste argitalpen** (9); **bi argitalpen** (5); **da argitalpen** (3); **du argitalpen** (3); **duen argitalpen** (3); **dugu argitalpen** (3); **ere argitalpen** (3); **hainbat argitalpen** (10); **hirugarren argitalpen** (3); **lehen argitalpen** (3); **liburuaren argitalpen** (9); **zenbait argitalpen** (3)
>
> **argitalpena egin** (4); **argitalpena ere** (5); **bigarren argitalpena** (5); **euskarazko argitalpena** (3); **liburuaren argitalpena** (3); **liburuaren hirugarren argitalpena** (3); **liburuaren lehen argitalpena** (3)
>
> **argitalpenak ere** (5); **euskarazko argitalpenak** (3)
>
> **argitalpenen bidez** (4); **bere argitalpenen** (4); **liburuen argitalpenen** (3)
>
> **argitalpenetan ere** (3)
>
> **errusierazko argitalpenetik harturiko** (18); **itzultzaileak errusierazko argitalpenetik** (18)

---

argitalpengintza *iz* argitalpenak egitea.

Aldaketa handia ikusten ari naiz, ez Azokan bakarrik: euskal **argitalpengintzan** oro har. Berria - Kultura

Kultur industriaren barruan dagoen elementu indartsu bat da **argitalpengintza**, eta **argitalpengintzaren** elementu garrantzitsu bat dira ikasliburuak. Berria - Euskal Herria

---

argitan **1** *adlag* argituta.

Reno hiria dena **argitan** zen afaldurik jalgi ginenean, holako hiri horiek baitute egunazko itxura, karrikak autoz beteak, horien erdian zaudelarik, etxe, hotel, saltegi, ala bertze, oro zoin gorago zeruari buruz. Herria

Hunek **argitan** ezartzen du marrazki bizidunaren egiteko moldea. Herria

Zure leihoak **argitan** zeuden, nire bihotz guztia burrunban. Eduardo Matauko

Aterpea oraino **argitan** dago, baina erromes gehienak ohean daude, batzuk irakurtzen, besteak ja loan sartuak, batto korroka aplikatu batez artatzen bezala dela. Piarres Aintziart

• **2** *postpos* zerbaiten argiaren mendean.

Eta orduan, ilargiaren **argitan**, ertzain saldoa ikusi nian biltegi inguruetan, ezkutatuta, zelatan, basurderen bat harrapatu beharko balute bezala. Paddy Rekalde

Kazetariek burua kaieretatik jaso barik idazten zuten mahai gaineko kriseiluen **argitan**, lekuko izugarriei begiratzeko uzkur baleude legez. Koldo Izagirre

Garai hartako leloa Dobzhansky-ren esaldia zen: "biologian ezerk ez du zentzurik eboluzioaren **argitan** ez bada". Askoren artean

Luzaroan geratu ziren hala, blaituta, ilunpean inarrosita, itsasora jausten ziren tximisten **argitan**. Joanes Urkixo

Ukitzen dituzun eguzki guztiak itzaltzen omen dira, baina nahiago dut zure eklipsearen **argitan** bizi, unibertsoko eguzki guztien itzalpean baino. Joan Mari Irigoien

Lege idatzi baten bidez, ordu arte sakabanatuta zegoena testu bakar batean jartzekoa zen, gizabanakoaren adimen eta arrazoimenaren **argitan**, aro berriari zegozkion lege zibil berriak egokiro eho eta mamituak. Andres Urrutia

---

argitaragabe **1** *izond* argitaratu ez dena.

Doktoradutza Tesi **argitaragabea**. Koldo Zuazo

Pio Barojaren azken eleberria da, orain arte ezezaguna eta **argitaragabea**: *Miserias de la gerra* (Gerrako miseriak). Berria - Kultura

Gero, *Artikulu* ***argitaragabeak*** izeneko artxiboan gorde du. *Gandiagaren poema* ***argitaragabeak*** liburuaren ale bat oparitu zion Sorsek EAEko lehendakariari. Anjel Lertxundi

Iñaki Goikoetxearen lan **argitaragabe** bi aurkitu dituzte. Berria - Kultura

Brechten idazlan **argitaragabe** batzuk agertu dira Zurichen. Berria - Kultura

Hogei urte lehenago idatzitako testu **argitaragabe** bat zeukan eskuetan, bere garaian Euzko Gogoa-k atzera bota ziona. Harkaitz Cano

Eusko Jaurlaritzaren inkesta baino lehenagotik ere CISeko inkesta **argitaragabe** batek diputatu izateko aukera aurreikusten ziola bazekien Sarasuak, eta, inkestak inkesta, sinesten hasi da. Berria - Euskal Herria

Nire sermoi **argitaragabeetako** lauetan zeharo gezurtatu ditudan anabaptisten heresien kutsua hartzen diet zure hitzoi. Antton Olano

Bestalde, orain arteko guztiak ez bezala, lan hau guztiz **argitaragabea** izan da gaur arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Beste hainbat testu ere aurkitu dituzte, eta ikertzen hasi dira, 6.700 poemaren artean, argitaratuak edo **argitaragabeak** diren. Berria - Kultura

2 (adizlagun gisa)

Erregezale porrokatua, *Grandezas de España* izeneko lan historikoen bilduma itzela utzi zuen **argitaragabe**. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **poema argitaragabeak** (4)

---

argitaraketa *iz* argitaratzea.

-"El Cuartel Real"en **argitaraketa** -azaldu dit- aste pare batez edo atzeratu behar izango dugu oraindik. Txillardegi

---

argitaraldi *(orobat **argitaldi** g.er.)* *iz* zerbait argitaratzen den aldi bakoitza. ik **edizio**.

Liburua 1781ean agertu zen lehenengo aldiz eta 1787an berriz hobetutako **argitaraldi** batean, bai egileak, baita publikoak ere lana zailegitzat eta ilunegitzat jo zutelako. Ibon Uribarri

Lehenengo **argitaraldia** 2.000 alekoa izan zen eta berehala agortu zen. Jon Muñoz

Handik gutxira, Durand jaunak beste **argitaraldi** bat egin zuen. Jon Muñoz

Hau da **argitaraldi** gehien izan dituen liburua, Bibliaren ondoren. Adiskide batek eskatuta, *Southern Literary Messenger* aldizkariko zuzendaritza hartu zuen: eginahalean, hamazazpi aleko **argitaraldia** hamabost milaraino igotzea lortu zuen. Jon Muñoz

Arima hilak-en bigarren tomoaren lehen **argitaraldian** (1855) ohar hau dago: [...]. Markos Zapiain

Aurrena, ordena kronologikoa eta haren ondoren gaikakoa hautatu zituen Ruche jaunak: liburu bat non kokatu, jatorrizko **argitaraldiaren** datak erabakiko zuen lehenik, eta liburuaren gaiak, gero. Jon Muñoz

Ez da ahantzi behar lehen **argitaraldian** beraren bi liburuen 2.000 ale baino ez zirela kaleratu. Juan Garzia

Egilea eta liburua gaitzetsiak izan ziren, agintari militarrek zigortu egin zuten Laclos eta Bretainiara bidali berehala, baina apirila bukaeran kalean zen jadanik liburuaren bigarren **argitaraldia**. Jon Muñoz

Egilearen hitzaurrea bigarren **argitaraldiari**. Ibon Uribarri

Itzulpenaren **argitaldi** honen arabera egingo dira aipamenak, hemen Donostian KMko1900eko "mailegaezina" baino eskuraerrazagoa baita. Koldo Izagirre

The Washington Post eta *The Wall Street Journal* egunkariek atzoko euren **argitaldian** ziotenez, Sergei Lavrovek ziurtatu dio Condoleezza Riceri Errusiak abstentziora joko duela Segurtasun Kontseiluaren jarrera hartze bat gertatzen bada. Berria - Mundua

Poliziak lehen **argitaraldia** bahitu ostean, Ramon Saizarbitoriaren 'Ehun metro' 1976an iritsi zen plazara. Berria - Kultura

Zure Gorentasunak lan honen lehen **argitaraldiarekin** izandako begiramendu ongile berari eskaintzen diot bigarrena ere, eta honekin batera, nire literatura ekimenen beste alderdi guztiak, eta mirespen sakonenarekin. Ibon Uribarri

Atxagaren obrak etenik gabe izaten ditu **argitaraldi** berriak munduan. Berria - Kultura

Horregatik zeuden han eta ez Habanako liburutegi zaharretan, haietan ez baitziren "Che", Castro edo Marx-en biografien **argitaraldi** zaharrak baizik aurkitzen. Jon Muñoz

Apez xaharraren erranak gogoan hartürik," Le peuple basque dans l' histoire" libürüan agertürik nütüan hastetik (1970ekoa beitüt lehen **argitaraldia**), haatik ez osoki entzün nütüan bezala. Herria

Bigarren **argitaraldi** hobetua. Ibon Uribarri

Ruche jaunak ezin zien sinetsi bere begiei; argitalpenaren nec plus ultra zegoen han, bildumagile oro eskuratzeko irrikan dagoen alea: princeps argitalpena; idazlan baten lehen argitaraldia, alegia, testua zabaltzeko erabiltzen dena, jatorrizko **argitaraldietan** jatorrizkoena. Jon Muñoz

Oraindik atzeraka ari zen lerro hauek idazteko garaian 1948an, eta idazle honek galdetzen zuen zer esango ote zuen jakitun jatorrak, garai hartan Urrezko Abarra berrikusi behar izan balu laugarren **argitaraldirako**, pasarte probokatibo horren argitalpenetik igarotako berrogeita bat urteetan Europak "bizi eta portatzeko jatorrizko idealetara" itzultzeko hartu zituen bideetako batzuei buruz. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bigarren argitaraldi** (3)
> **lehen argitaraldia** (4)
> **tomoaren lehen argitaraldian** (3)
> **argitaraldiko ale bat** (3)

---

argitarapen ik **argitalpen**.

---

argitararazi ik **argitarazi**.

---

argitaratu *(ETCn **94.131** agerraldi)*, argitara(tu), argitarazten du **1** *ad* argitara eman, eskuarki liburu edo bestelako izkriburen bat inprentaren bidez; ageriko egin. ik **publikatu**; **argira atera**; **argitara atera**; **argitara ekarri**; **argitara eman**.

ez dut jakin nahi zein egunkari irakurtzen duzuen eta non **argitaratzen** dituzuen zuen amonaren eskelak. Hasier Etxeberria

Shanti Andia protagonista duen Pio Barojaren liburua Yon Etxaidek itzuli eta 1959an **argitaratu** zuen Itxaropenak, Itxasoa laño dago izenarekin. Pablo Sastre

Euskaldunekiko mirespen handia erakusteaz gain, 36ko gerraren kronika hurbil eta gordina egin zuen, eta Hego Euskal Herria faxisten menpe geratu zenean Ingalaterrara itzuli eta liburu hori **argitaratu** zuen. Jokin Urain

Ez du **argitaratu** nahi. Pako Aristi

-Hau atzo **argitaratu** zuten Los Angeles Times-en. Fernando Rey

Ez dakit zer **argitaratuko** zuten Espainian, zeren eta hemengo hau askatasunaren aldeko fedearen garaipena baita, ez bakarrik han gorritzat har daitezkeen ideia batzuena. Jon Muñoz

Urte hartan bertan **argitaratuko** du Crime de village ipuin bilduma, aitari eskainia. Itziar Otegi

Ikasketak amaituta, Londresa joan zen, arte eta literatur munduan bere burua ezagutaraztera, eta berehala **argitaratu** zuen bere lehen poema-bilduma: Poems (1881). Antton Olano

Demagun euskaltzaletasuna: liburua **argitaratu** zen garaiko (1925) euskaltasun aberkoia eta Europako mugimendu nazionalistak ditu iturri. Anjel Lertxundi

Oraindik ere 1970. urtean, hau da, bonbardaketa gertatu eta 32 urte geroago, bere burua zuritzeko liburu bat **argitaratu** zuen. Jon Alonso

Liburu bat **argitaratzen** duenean, idazlea urduri geratzen da; espektatiba handiak zabaltzen dira bere aurrean, eta oso kontuz tratatu beharreko animalia bihurtzen da. Pako Aristi

Harentzat izango zen azkenean, une hartantxe erredakzioko zuzendariordeak jakinarazten zion bezala, hurrengo igandeko gehigarrian "Gure jubilatuen mintzoa" izeneko atalean **argitaratuko** zuten elkarrizketaren pertsonaia. Josetxo Azkona

Luze eta zabal **argitaratu** zuten kontakizuna, Sheila heroi bihurtuz; eta ezin naiz kexatu nitaz esan zutenaz, salbu eta nahiago nukeela ni batere aipatu ez banindute. Xabier Olarra

Eta txostena **argitaratuko** balitz, ezta poliziak ere, jakina. Migel Angel Mintegi

Oztoporik gabe **argitaratutako** liburu hura ikusita, pentsatu nuen errespetua lortzen hasiak ginela. Juan Kruz Igerabide

Garai horretan Tenohira no xôsetsu idazten hasi zen: Esku-ahur batean bil daitezkeen kontakizun laburrak (1921etik 1964 arte **argitaratu** zituen aldizkarietan). Ibon Uribarri

Hiru liburu **argitaratu** ditik. Iban Zaldua

Durduzaz eta dardaraz bataiatu dut hitzaurre hau, izena liburu batetik hartuta (Nathalie Nothomb frantsesarena, Joxan Elosegik euskaratua eta Igelak **argitaratua**). Andoni Egaña

Esaldi horretan laburbiltzen zen Frantzisko Montoiaren teoria, eta sagarzalea zela frogatzen zuten hor-hemen bere diruz **argitaratutako** poemek. Felipe Juaristi

Komunikazioaren gakoez eta ahalmenaz dozenaka testuliburu, ehunka gidaliburu eta milaka artikulu **argitaratu** dira azken hamarkadotan. Txema Ramirez de la Piscina

Iragan abendukoak ziren argazkiak eta, hara apirilean Gudarin **argitaraturik**. Edorta Jimenez

Geroztik, ia urtero **argitaratu** zuen eleberriren bat, eta horien artean Wohin rollst du, Äpfelchen (1928, Nora zoaz, sagartxo?) delakoak ekarri zion arrakasta. Anton Garikano

Izan ere, ez dago ezer gordeta agertuko ez denik, ez eta ezkutuan ere jakingo eta **argitaratuko** ez denik. Elizen arteko biblia

-Argazkia ikusi nahi baduzu, bilatuko dizut **argitaratu** genueneko alea. Xabier Mendiguren Elizegi

Frantziako argitaletxe on baten jabe ei zen, aita zenak esaten zigunez, eta izkribuak zuzenean irakurtzea gustatzen ei zitzaion, **argitaratu** aurretik. Joxemari Urteaga

Haur eta etxekoandre izatearen zure historia idatzi behar zenuke, egunkari batean **argitaratzeko**. Juan Kruz Igerabide

Oharra: Liburu honen prestaketarako, oso baliagarri izan ditugu Jose Antonio Guerraren ardurapean **argitaratutako** bi liburu: San Francisco de Asís. Askoren artean

Gogoan dut nola, Leitzako errege erreginak alimaleko alorlana **argitaratu** berri zuela eta, zoriontzera joan nintzaionean, idazleak, xalo-xalo, "bizi naizen herria ezagutu nahi nian" esan zidan. Patziku Perurena

2 (era burutua izenondo gisa)

Xehetasun gehiagotarako, ikusi nire lan **argitaratuak**. Iñaki Mendiguren

Genero berriak (Zirika edo Zirikadeak saileko glosak eta Izpar Urtenenak saileko berriak), liburu **argitaratu** berrien edo kultura ekoizpenen berri eta iritzi gehiago, orobat Lauaxetaren oharrak Euzkadi egunkariko euskal idazleei. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

aldizkariak argitaratu (12); **aldizkarian argitaratu** (27); **argitaratu ahal** (12); **argitaratu aurretik** (13); **argitaratu behar** (13); **argitaratu berri** (77); **argitaratu berri du** (24); **argitaratu berri duen** (26); **argitaratu berria** (15); **argitaratu da** (22); **argitaratu den** (22); **argitaratu dira** (16); **argitaratu diren** (19); **argitaratu ditu** (85); **argitaratu dituen** (17); **argitaratu dituzte** (33); **argitaratu du** (177); **argitaratu duen** (33); **argitaratu dute** (60); **argitaratu gabe** (29); **argitaratu gabeko** (25); **argitaratu izan** (11); **argitaratu nahi** (21); **argitaratu zen** (145); **argitaratu zenean** (20); **argitaratu ziren** (58); **argitaratu zituen** (126); **argitaratu zituzten** (30); **argitaratu zuela** (11); **argitaratu zuen** (427); **argitaratu zuen atzo** (16); **argitaratu zuen bere** (13); **argitaratu zuenez** (28); **argitaratu zuten** (61); **artikulu bat argitaratu** (13); **asko argitaratu** (12); **atzo argitaratu** (38); **bilduma argitaratu** (15); **egunkariak atzo argitaratu** (14); **egunkarian argitaratu** (13); **euskaraz argitaratu** (16); **idatzi eta argitaratu** (12); **karikaturak argitaratu** (11); **lana argitaratu** (13); **liburu argitaratu** (40); **liburu bat argitaratu** (19); **liburua argitaratu** (87); **liburua argitaratu du** (20); **liburua argitaratu zuen** (19); **liburuak argitaratu** (11); **txostena argitaratu** (12); **urtean argitaratu** (16)

---

argitaratugabe *izond* argitaratu ez dena.

261 orriko lan **argitaratugabea**. Berria - Kultura

Jakina, *The Logical Structure of Linguistic Theory* **argitaratugabearen** eskuizkribua eskuz esku ibiltzen zen hizkuntzaren, filosofiaren eta psikologiaren arloko auziei buruzko interesa zutenen zirkuluetan. Itziar Laka

Denak dira **argitaratugabeak**, eta denen originalak Itzean gordetzen dira. Berria - Kultura

---

argitaratzaile **1** *iz* argitaratze lanez arduratzen den pertsona edo enpresa.

Handi George Sylvester Viereck (1884-1962), nobelagile, entseiulari eta **argitaratzailea**. Xabier Olarra

Gutxi ziren: bera, **argitaratzailea**, biltegizain bat eta emakume daktilografo bat, Coppa andereñoa zeritzana. Fernando Rey

"Harreman arriskutsuak" beraz militar etsi eta gogaitu baten obra handinahia da, 1782an argitaratua, Durand **argitaratzailearen** etxean, lau liburukitan. Jon Muñoz

Argitaratzailea, kooedizioa: Aise liburuak, Alberdania, Elkar, Erein, Elhuyar, Pamiela, Susa, Ttarttalo, Txalaparta. Berria - Euskal Herria

Aleman errabinoaren sermoiaren ondoren, beste gorazarre bat izan zen, New Yorkeko hebrear aldizkari baten **argitaratzaileak** egina. Koro Navarro

Baina ez, Groenlandiako lezioa zen, Leik Eriksonen ahotsa zen, eta, hitzaldiaren **argitaratzaileak** zuzen jokatzera, han ez zen ezer falta. Bernardo Atxaga

Erabateko zuhurtziarekin jokatuz, itzulpen honen **argitaratzaileak** "Harleian manuscript, 2767" izeneko iturria aukeratu du, inondik ere VIII. mendekoa izango den obra, Frank Grangerrek ezagutzen ziren guztien arteko zaharrenekotzat hartzen zuena. Santiago Iruretagoiena

Zabala berriz ere holako lan haundiaren **argitaratzailea**. Herria

Yiddishezko aldizkari bat argitaratzeko asmoa zuela-eta, ezagutu genuen elkar; ni bere **argitaratzailea** izatea nahi zuen. Koro Navarro

Argitaratzailea gazte musugorri lotsati bat zen, lotsaz maiz gorritzen zena. Fernando Rey

Gutunaren **argitaratzaileek** uste dute testuko *bost* akatsa dela, eta *ehun eta berrogeita hamar*izan behar duela. Askoren artean

1987ko urrian eman zuten BBCko programa, eta jakin-min eta zalaparta galanta sortu zituen: gutun-uholde bat iritsi zen Stephenen marrazkiak non ikus zitezkeen galdezka, eta kontratuak eskaintzen hasi ziren **argitaratzaileak**. Xabier Olarra

Argitaratzaileek agindu oso zorrotzak jaso dituzte agintarien aldetik -esan omen zuen. Joxean Agirre

Azken aldian prentsarako artikuluak idazten zituen, baina **argitaratzaileek**, aho batez, atzera botatzen zizkioten eskuizkribu guztiak. Koro Navarro

Bai **argitaratzaileak** bai inprimatzaileak uko egiten zioten liburua bere horretan argitaratzeari, hitz zatarrak eta aipu desegokiak zeudela eta auzitara eraman zitzaketela argudiaturik. Irene Aldasoro

Hetzelek eskuizkribua irakurri, eta harreman ezin oparoagoa abiatu zen idazlearen eta **argitaratzailearen** artean. Karlos Zabala

Argitaratzaileak: Elkar, Labayru Ikastegia, Arantzazu Edizio Frantziskotarrak. Berria - Kultura

Egia erran, ez zaiku guri hitz hori hain pollit, bainan Sony disketxea du **argitaratzailea**, eta Euskal Herritik kanpo hedatzeko, hitz komertzial egokia liteke!! Kazetaren **argitaratzailea** Impresores Vasco-Navarros SA izan da.· Europako **argitaratzaile** berriek ere ez liekete helduko honelako proiektuei. Herria

Galde egin diot neure buruari **argitaratzaile** estatubatuar batek halako proiektu bati helduko liokeen, eta ezetz erantzun dut. Pello Lizarralde

Esate baterako, gezurrezko **argitaratzaileen** oharrak, egunerokoaren erabilera, hizkera mistikoa tarteka, heroiaren jitea, exotismo dosiren bat, suspensea... Monika Etxebarria

Sartreren testua aipamen kultural anitzez horniturik dago, batzuetan irakurleen adostasuna bilatzen dutenak.· **Argitaratzaile** buru eta gehiago ere izendatuko nuke. Monika Etxebarria

2 (izenondo gisa)

Inpresores Vasconavarros enpresa **argitaratzaileak** atzo jakinarazi zuenez, egunkariak kiebra jo duelako itxi dute. Berria - Euskal Herria

Egunkaria-ren ixtea eta enpresa **argitaratzailearen** jardueren etetea beste lau hilabeterako luzatzea erabaki du. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zenbakia argitaratzailea (11)

argitaratzailearen oharra (6)

---

argitaratze *iz* argitara ematea, eskuarki liburu edo bestelako izkriburen bat inprentaren bidez.

Zentzugabekeria izan zen **argitaratze** hori. Juan Garzia

Hori ez da nire arazoa, Gruwerri egin niezaiokeen omenaldirik duinena baitzen **argitaratze** hura eta ederki merezia zuen margolari bakartiak. Aritz Gorrotxategi

Fitxaren buruak erreferentzia bibliografikoa identifikatzeko behar diren datu guztiak eduki behar ditu: egilea, izenburua, **argitaratze**-lekua, argitaletxea, edizioa, jatorrizko data eta zu erabiltzen ari zaren edizioaren data (hau jatorrizkoa ez denean, jakina). Askoren artean

Ekintza txiki sinbolikoak, hala nola hil-mezua idaztea, hitzak eta izenak aukeratzea, **argitaratze** epea errespetatzea, lerroak kontatzea, e-posta garaiz iritsia zela egiaztatzea, Jatorrizko **argitaratze**-data. Joxan Elosegi

Haien artean aukeratzeko irizpide orokorra **argitaratze**-urtea izan ohi da. kritikan jardunez gero, **argitaratze** ahalegin batzuk ahuntzaren gauerdiko eztula gertatuko lirateke. Askoren artean

-Beka onartu zeneko akordioa goitik behera irakurri diat badaezpada, eta inon ez duk aipatzen **argitaratze** konturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Argitaratze-aukerak handiagotzea. Askoren artean

Hizkuntza gutxituetako egunkarien **argitaratze** eta hedatze eskubideak eta adierazpen askatasuna bermatzeko. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argitaratze data** (3)

---

argitarazi, argitaraz(i), argitarazten *(orobat **argitararazi**)* du *ad* argitaratzera behartu.

Liburu bat ere **argitarazi** zuen 1982an "Mattin nere gizona" tituluarekin. Herria

Erran nion egun batez, Angel Ainciburu luzaidar adiskideari, Euskal Irratietan zabaltzen dituen emankizun interesgarriek idaztea eta **argitaraztea** merezi luketela Maiatz-ek Bretainian eta beste hizkuntz guttituetako lurraldeetan zabalduko du liburua eta ELEBI sail hortan Antton Luku-ren testu baten **argitaraztea** asmo du. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hilabeterik ez zuen iragaiten berak **argitarazten** zituen manifestu sutsu bat helarazi gabe. Elena Touyarou

Hunek gero eta gehiago **argitarazten** dauku herri hau lan postuz husten ari dela eta emeki bainan segurki logela bilakatzen ari zaukula. Herria

Lizardi hil eta handik hogei urtera **argitararazi** zuen egilearen adiskide Antonio Maria Labaienek, Egan aldizkarian, 1953an. Xabier Mendiguren Elizegi

Napoleoni dagokionez, benetan hark idatzi zuen, edo bere izenpean **argitararazi** zuen, Julio Zesarren bizitza. Iñaki Mendiguren

Garai hartan liburu bat ere idazten ari zen: ez zegoen inola ulertzerik nondik ateratzen zuen idazteko denbora, baina idazten zuen, une jakin batean **argitararazi** egin baitzuen, beste batzuei probak zuzen zitzaten eskatutakoan, berak ez zekielako zuzenketan: haien gainean hilabeteak pasaturik ere ez zituen ikusten akatsak. Fernando Rey

Ez ahantz Nafarroako erregina legitimoa protestantea zela eta euskarazko propaganda bultzatzen zuela, 1571n Leizarragaren Testamentu Berria **argitararaziz** demostratuko zuen bezala. Berria - Kultura

---

argitarazle *iz* argitarazten duen pertsona edo enpresa.

Argitarazlea: Mendizolan BP 28 PK 64130 Maule . Herria

---

argitasun *(ETCn **8.939** agerraldi)* **1** *iz* egoerak eta kidekoak ulertzeko ahalmena.

Atsoa orduan harri eta zur geratu zen emakumearen zuhurtzia eta **argitasuna** ikusirik. Patxi Zubizarreta

Santuaren **argitasuna** eta gure ezjakintasuna. Askoren artean

Hermannek ez zituen sekula oreka eta **argitasuna** galtzen. Anjel Lertxundi

Ondo konbinatzen ditu **argitasuna** eta laburtasuna. Askoren artean

Miresten nian hire **argitasuna**, higandik isurtzen zen gehiago-izate bitxi eta etsia. Xabier Olarra

Argitasuna, dirdirek dardarazia. Anjel Lertxundi

Galduko ez den oroitzapena da, itzala bezalakoa, lausoa, aldakorra, zehazgabea, ziurtasunik gabea, eta itzala bezalakoa, orobat, itzalaz bezala hartaz ere ez bainaiz libratuko nire arrazoiaren **argitasunak** dirauen artean. Koro Navarro

Ez du merezi gai honetara itzultzeak: zure espirituaren **argitasunak** laguntzen die nire frogei. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zuzendari txit agurgarriak bizkor eta asko pentsatzen du, aspalditik konturatuta nago bere **argitasunaz**. Anjel Lertxundi

Eskolan ez zen bere **argitasunaz** irakasleak txundituta uzteko moduko ikaslea. Gotzon Garate

Alkoholak batzuetan ematen duen **argitasunaren** jabe, ez nintzen batere logale. Aingeru Epaltza

Egintza baten zuhurtzia egileak hura burutzean zuen **argitasunaren** arabera juzkatu behar da. Xabier Olarra

Zein jakintsua izan zinen gaztaroan, Salomon, **argitasunez** betea ibaia urez bezala! Elizen arteko biblia

Orduan jakin zuen Sarak, minak ematen duen jakinduriaz, minak ematen duen ziurtasunez, minak ematen duen **argitasunez**, begian alaitasuna eta ezpainetan irribarrea zituela, autoak Kauffmann zeramala barrenean. Felipe Juaristi

Nire ahulezian ez nintzen **argitasunez** pentsatzeko ere gauza. Xabier Mendiguren Elizegi

Herri hizkerak irakaskuntzan aintzakotzat hartu beharraz mintzatu zen, ohikoa zuen **argitasunez** eta zentzu onez. Koldo Zuazo

Guztiek giza borondate-indar eta buru-**argitasunezko** mirariak zertu zituzten, baina bereziki gizakiarena den moldagarritasun aldakorraren koalitatea sistematikoki ukatzearen ordainetan. Iñaki Mendiguren

2 zerbait argitzen, azaltzen, frogatzen duen zera; argibidea. ik **argigarri**.

Irakur ezazu ozen, nahi dituzun **argitasun** guztiak emango dizkizut. Karlos Zabala

Honatx Alonso Lopez Corellakoaren Quinquagenas atseginetatik, **argitasun** batzuk: [...]. Patziku Perurena

Esan daiteke eraketa diskurtsiboen kokapenak, kontuan izan gabe litezkeen beste bateratze-hastapenak, **argitasuna** ematen diola enuntziatuaren berezko mailari. Xabier Arregi

Koadroei **argitasuna** emateko teknika bereziak erabiltzen zituztela. Ramon Saizarbitoria

Bera mahaiaren alde batean eta On Camillo bestean, elkarri aurpegia ikusi ezin ziotela, kriseiluaren **argitasuna** zegoelako bien tartean. Koldo Biguri

Guztiaren **argitasuna** eman zidan hark: [...]. Elizen arteko biblia

Hori da **argitasuna** hemen ere, zeren, gezurra badirudi ere, aparteko **argitasuna** eta zintzotasuna behar baitu gaur pertsonak deklaratzeko mundu guztiak jakin behar lukeena eta ez dakiena: hots, ur handi edo sakonetan ez dagoela argirik eta ez dela deus ikusten. Iñaki Segurola

Halatan, alemanaren sintaxia egokia da oso filosofiarako eta bereziki metafisikarako; frantsesak, berriz, **argitasuna** du dohain. Bernardo Atxaga

Gai honetaz **argitasunak** emanez, Enrike Diez de Ultzurrenek hala esaten zidan, bere gutunean: [...]. Patziku Perurena

Argitasunak eskatu behar ditugu oraindik, nekazari horiek saltzeko debekurik ez dagoela egiaztatze aldera. Jose Morales

Ikasliburua bera ergelkeria hutsa zen, liburu frantses batzuetatik puskak hartuz egina, **argitasunik** eta gogo-berotasunik gabe. Josu Zabaleta

Kontsumitzaileen elkarteek protesta egin dute erabiltzaileei horren inguruko **argitasunik** eman ez zaielako. Berria - Euskal Herria

Beste **argitasunik** ematen hasi baino lehen, hara zer esaten duen Mariano Mendigatxa bidangoztarraren gutunak: [...]. Patziku Perurena

3 argia denaren nolakotasuna, argitsua den gauza.

Lanpara itzalia zegoen, baina iluntasuna ez zen erabatekoa, kaleko lanpara baten **argitasuna** sartzen baitzen gelan. Koro Navarro

Eguzkia sartzear zegoen eta apenas zerion **argitasunik**. Patxi Zubizarreta

Apezetxearen begietako **argitasuna** aldatu egin da une horretatik aurrera, eta jada ez da gaur bertakoa haren ninietan agintzen duen argia. Hasier Etxeberria

Aurkituko duzu beira txiki eta lauki ugariz osatutako leiho polita, **argitasuna** sartzen uzten duena. Urtzi Urrutikoetxea

Bertan ikusi ahal izan nuenez, leiho itxiaren zirrikituetatik sartzen zen **argitasuna** nahikoa zen logelako formak bereizteko. Aitor Arana

Gau min beltzean etorri, haztamuka, liburutegira, argia piztu eta berez begiak ixtera behartzen nauen bat-bateko **argitasuna** are mingarriago, eramanezinago zait. Iñaki Iñurrieta

Etxe osoko argiak piztu ditu, **argitasunarekin** amets gaiztoen iluntasunetik ihes egitearren. Sonia Gonzalez

Sabai piztuaren **argitasunak** ikusgai bihurtzen zituen zokorik ezkutuenak. Koro Navarro

Hortxe daude [izarrak][, baina zeruaren **argitasunak** horien distira ezkutatzen du. Berria - Gaiak

Arrats beheran geundela nabarmena zen, gero eta gorriagoa zen kanpoko **argitasunak** apurka galtzen baitzuen indarra leihoen beste aldean. Sonia Gonzalez

Jainkoak **argitasuna** iluntasunetik banatu zuenean. Iñaki Mendiguren

Hegoak zabal-zabalik doaz, eta iluntasunak eusten die, **argitasunak** eusten dien bezalaxe. Jose Morales

Argitasuna; horren falta sumatuko nuke iparraldean biziko banintz. Ramon Saizarbitoria

Bi kandela piztu ditugu eta sulamen **argitasuna** hegalka hasi da mahaiaren gainean, arroz zuria argituz eta arrautza frijituak erakutsiz. Joseba Sarrionandia

Egunsentiaren **argitasunak** ezustean harrapatu zuen Xerazade eta honek hitz egiteari utzi zion. Monika Etxebarria

Oi, arrastiko **argitasun** hura. Edorta Jimenez

Begietara zizt etorri zitzaion **argitasun** bat, pozarena zena, txinpartetan. Edorta Jimenez

Gelako leihoa itxita zegoen, eta, halere, **argitasuna** handia iruditzen zitzaidan. Bernardo Atxaga

Gaua behingoan etor zedin, ala arrastiko azken **argitasuna** pittin batez luza zedin, ez nekien zer nuen nahiago. Edorta Jimenez

Florentek, Parisko **argitasun** neurrigabe hari begira, besteei ezkutatzen zizkien pasadizoak zerabiltzan buruan. Karlos Zabala

Leihoko **argitasun** bizian. Karlos Zabala

Hiltokiko bost harri handiak erakutsi zizkion; luze-luze ageri ziren Rambuteau kalearen aldean, goi leihoen eta gas argiontzien **argitasun** horiaren pean. Karlos Zabala

Farolaren **argitasuna** mila zatitan lehertua geratu zen, kalea erabat belztuz. Joxemari Urteaga

Kanpoan, ezkutuan, Mogueime dendaren inguruan dabil, zelatan, oihalen zirrikituetatik ateratzen den kandela handien **argitasunak** liluratu duen tximeleta bat balitz bezala. Jon Alonso

Egunsentiaren **argitasunak** ezustean harrapatu zuen Xerazade eta honek hitz egiteari utzi zion. Monika Etxebarria

Irudi horren **argitasuna** handitu nahi baldin bada, kamera ilunean sartzen den argi kopurua handitu beharra izango litzateke. Josu Zabaleta

Begiak baduela mekanismorik garunari adierazteko noiz gehitzen edo gutxitzen den **argitasunaren** intentsitatea edo noiz mugitzen den ikusmen-eremuan dagoen objektu bat. Irene Aldasoro

Kontrastea: **argitasunaren** eta ertzen arteko elkarreragina. Josu Zabaleta

Sortutako adimen oro, bere izatez, Jainkoaren **argitasunaren** aurrean, eguzki distiratsuari begiratzen dion enararen begiaren antzekoa da. Joan Mari Lekuona

Eguzkiak **argitasunez** betetzen zuen ibaia, guztiz gozagarri bihurtzen zuen lurra. Josu Zabaleta

Castrisen jantzi beltzak **argitasunez** blai zirudien. Josu Zabaleta

Metal goriaren distira zuen, eta suaren antzeko zerbaiten erdian zegoen, goitik beheraino **argitasunez** inguratua. Elizen arteko biblia

Laino artean, nireak ez zirela uste izan nuen ametsen artean azaldu zitzaizkidan behialako irudiak, erabateko **argitasunez** ikusten nituen orain. Karlos Linazasoro

Arbelen lerro garbiaren gainetik, estalpeko kale nagusiaren gangaren armazoi garaiak **argitasunezko** ilargi erdi bat ebakitzen zuen zeruaren urdin zurbilean. Karlos Zabala

"Aura" hitzak pertsona batzuei edo gauza batzuei ustez darien **argitasunezko** koroa gutxi-asko naturaz gaindikoa esan nahi du. Josu Zabaleta

Argitasunetik ilunpetara jaurtikia, mundutik ere kanporatua. Elizen arteko biblia

Inon ez genuen ikusten ez ilargirik ez izarrik, ezta tximisten **argitasunik** ere. Koro Navarro

Filosofiako arazoek kezkatzen duten edozein pertsona argituk bere begiak orri hauetara begira jartzea aski izango du, bere baitan **argitasunik** distiragarriena piztu dakion. Josu Zabaleta

Ez dute horrela pentsatzen gabezia guztiei buruz, eta, horrela, ez dute onartzen iluntasuna **argitasunik** eza, ez eta pausatzea mugimendu gabezia denik ere. Xabier Kintana

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Heriok bere atzaparkada ilunean harrapatu zituen, eta eguzkiaren **argitasun** distiratsua utzi behar izan zuten. Iñaki Mendiguren

Erlijioa eta zientzia egi mota desberdinez arduratzen dira, eta psike subkontzientearen psikologia modernoak **argitasun** sakona ematen du desberdintasun horren izaeraz. Ikusmenezko irudi batean kolore edo **argitasun** homogeneo, etenik gabeko batek, edo norabidean ia aldaketarik ez duen soslai batek, eta horrelakoek sortzen dute erredundantzia. Iñaki Mendiguren

Zerua zurbiltzen ari zen buru gainean; eta, bat-batean, nondik gabe jaiotzen zen **argitasun** bitxi batek argitu zituen kolpetik inguru guztian mila legoatan zabaltzen ziren gailur zurbilak. Josu Zabaleta

Kolore gris eta nabarrez nahasiriko **argitasun** motela zerien orain kristal altuei. Monika Etxebarria

Bat-batean ez dago hor jadanik, atzean gelditu da, **argitasun** gris bizi batek hartzen du halako batean ontzia, eta nonahi zabaltzen da zuzentasun saihestezinaz. Monika Etxebarria

' dio kankailuak, leihora doala, eta leihoa ireki duenean **argitasun** beroa sartu da. Joseba Sarrionandia

Kaleko argien **argitasun** hotzaren azpian. Monika Etxebarria

Eguzkiak, errukirik gabeko epai baten moduan, izakiengan proiektatzen dituen **argitasun** hotz horiek begietatik sartzen dira nigana. Monika Etxebarria

Iparraldetik urrezko **argitasuna** dator: Jainkoa, distira izugarriz inguratua. Elizen arteko biblia

Bat-batean berebiziko **argitasuna** jaitsi zen zerutik eta denengana zabaldu zen, bakoitzari amets zituen argia eta osasuna emanez. Askoren artean

-Berehalako **argitasunak** eskatu behar dizkizut. Anton Garikano

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hamabi zenbakiaren bertuteen sumertar aurkikuntza **argitasun**-kolpe bat izan zen, eta urrats iraultzailea egin zuten beren pisu eta neurri-sistema oinarri hamabitarrean berreginez. Iñaki Mendiguren

Ur azalean, zenbait uharriren goialdeak **argitasun** eremu hura zulatzen zuen. Monika Etxebarria

Argitasun sentimena ikusmen-sistemak gauzen luminantziaren aurrean dituen erreakzioek eragina den bezala, kolore sentimenak ere ikusmen-sistemak gauza horiek emititzen edo islatzen dituzten argien uhin-luzeraren aurrean dituen erreakzioetan du jatorria. Josu Zabaleta

Salmahaiaren atzealdean, panel osoa hartuz, eta baita ezkerraldean eta dendaren hondarrean ere, beste ispilu batzuek **argitasun** aintzirak eratzen zituzten marmolezko plaken artean. Karlos Zabala

Ontzia ingelesa bazen, hobe gaua lehenbailehen baletor; gutarikoa bazen, berriz, hobe **argitasun** zirrinta bat izatea, ikus gintzan, edo bestela kanoiak su egin ahal izan zezan. Edorta Jimenez

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eman diezazkizula Jaunak zuhurtasuna eta buru-**argitasuna** Israelen errege egingo zaituztenean, Jaunaren, zeure Jainkoaren, legea betetzeko. Elizen arteko biblia

Ez dugu mundua den bezala ikusiko, ez mugatuko, ez interpretatuko, eta gure beldurraren edo gure nahikeriaren araberakoa izanen da, nehola ere ez buru-**argitasunaren** eta arrazoinezko arrazoinen araberakoa. Joan Mari Irigoien

Egin negar hildakoagatik, argia galdu baitu; egin negar zentzugabeagatik, ez baitu buru-**argitasunik**. Elizen arteko biblia

Otoitzerako ahalegin nekaezinak, bertuteen etengabeko ariketarekin batera, berebiziko espiritu-**argitasuna** izatera eraman zuen Jainkoaren gizona. Askoren artean

Eta Andre Mariaren prefaziora iristean, hain indar handiz hasi zitzaion hazten Jainko **argitasuna** eta Jainko-maitasunaren grazi gozotasuna, ezen *Qui pridie quam* hitzak esateko unera iristean, ezin baitzuen jasan hainbesterainoko samurtasun eta eztitasuna. Askoren artean

Frantziskok honela adierazten du bere barne **argitasuna**: "Jaunak berak adierazi zidan". Askoren artean

7 ***buruko argitasun*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Urteen eskarmentuak ematen du **buruko argitasun** hori. ETC-prentsa

Hiru jokalari horien ekarpenari Prigioniren **buruko argitasuna** gehitu, eta Baskoniaren hasiera ikusgarria errazago ulertuko da. ETC-prentsa

Beraz, espero dut **buruko argitasun** une bat egotea, mugimendu horien absurduaz jabetzea eta zezenketen aurkako kanpaina behin betiko etetea". ETC-prentsa

Horiek kontzientziaratu egin behar dira, hau da, horietaz jabetu beharra dago, are gehiago, **buruko argitasunez**, adin desberdinetakoen arteko errespetuz eta tolerantziaz eta familiaren bizitza-zikloko une diferenteak eta bizitzako zereginak ikusteko modu diferenteak kontuan hartuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Batzuek diotenez, futbolerako **buruko argitasuna** eta bizkortasuna behar dira, eta hori dopatzearekin ez dator bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bere zorroztasun eta **buruko argitasun** ikaragarriak eta bere originaltasun eta azkartasuna izan zuten lekua testu laburretan. ETC-entziklopedia

Kokaina dosi baten ondorioak ongizate sentsazioa; **buruko argitasuna** ; umoretsu egotea; norberaren konfiantzaren igoera; indartsuago eta abilago sentitzea. ETC-entziklopedia

8 ***eguzki-argitasun*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Astrofisikan, **eguzki-argitasuna** izarren argitasuna adierazteko erabiltzen den argitasun unitatea da. Eguzkiak duenaren berdina da. ETC-entziklopedia

Liluratuko zaitu haren **eguzki-argitasunak** , eramango zaitu zure gainean eraikitzen duen ortziaren distira urre-koloreak; baina haien atzean iluntasunaren belztasuna dago... ". ETC-literatura, saiakera

Nik esaten badut, ordea: eguzkiak berotu egiten du harria, orduan hautemapenari kausaren adimen-kontzeptua gaineratzen zaio, eta honek derrigor lotzen du beroaren kontzeptua **eguzki-argitasunaren** kontzeptuarekin; judizio sintetikoa balio unibertsaleko egiten da derrigor eta, ondorioz, objektibo eta hautemapen zena esperientzia bihurtzen da. ETC-literatura, saiakera

9 ***eguzkiaren argitasun***

Ikusmin handiz atera ziren gaueko aterpea eskaini zien etxetik eta begiak **eguzkiaren argitasunera** eta zeru guztiz urdinera ohitu behar izan zitzaizkien. Aitor Arana

Artean ilun ageri zen murrua, baina **eguzkiaren argitasuna** bere atzean gora eginez igartzen zelarik, banekien iluntasun hura, odol ubelduaren kolorekoa, han urrunean zebilen haizearen abisua zena. Edorta Jimenez

Beraien adore ahaltsu guztia gorabehera, Heriok bere atzaparkada ilunean harrapatu zituen, eta **eguzkiaren argitasun** distiratsua utzi behar izan zuten"64. Iñaki Mendiguren

Lehenik, zeruaren kolore argia eta garbia eta bere barruan gordetzen dena, argizagi hara-honakoak, ilargia eta **eguzkiaren argitasun** biziko distira; hau guztiau bat-batean eta ezustean hilkorrei lehenengoz aurkeztuko balitzaie, zer miragarriagorik aipa liteke, edo zer sinesten lirateke gizakiak gutxiago ausartuko? Xabier Amuriza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argitasun apur bat (4); **argitasun asko** (8); **argitasun askorekin** (3); **argitasun baliosak** (4); **argitasun bat** (11); **argitasun batzu** (4); **argitasun batzuk** (5); **argitasun bera** (5); **argitasun berde** (3); **argitasun berezi** (4); **argitasun bila** (4); **argitasun bizia** (3); **argitasun edo** (3); **argitasun eman** (3); **argitasun emanez** (4); **argitasun epela** (3); **argitasun frango** (4); **argitasun gehiago nahi** (5); **argitasun gehiagorentzat** (3); **argitasun gutxi** (3); **argitasun guziak** (13); **argitasun guzien** (3); **argitasun handia** (5); **argitasun handiagoa** (3); **argitasun handirik** (12); **argitasun handiz** (6); **argitasun hartan** (5); **argitasun horrek** (6); **argitasun horren** (3); **argitasun hura** (9); **argitasun itsugarri** (4); **argitasun motel** (3); **argitasun motela** (4); **argitasun osoan** (3); **argitasun osoz frogatu** (3); **argitasun pixka bat** (6); **argitasun une** (5); **argitasun zehatz** (3); **argitasun zenbait** (3); **baina argitasun** (4); **baino argitasun** (3); **baten argitasun** (4); **bere argitasun** (5); **beste argitasun** (6); **buru argitasun** (7); **da argitasun** (5); **dela argitasun** (3); **diren argitasun** (3); **ditu argitasun** (3); **duen argitasun** (8); **duten argitasun** (3); **ere argitasun** (7); **halako argitasun** (7); **haren argitasun** (5); **hortaz argitasun** (3); **kemen eta argitasun** (3); **oso argitasun** (7); **zen argitasun** (6); **zenbait argitasun** (3); **zer argitasun** (3); **zerbait argitasun** (4); **zernahi argitasun** (8); **zuen argitasun** (13)

argitasuna baino (3); **argitasuna ematen** (4); **argitasuna ere** (4); **argitasuna ez** (6); **argitasuna izan** (4); **baten argitasuna** (3); **duten argitasuna** (3); **izan zuen argitasuna** (3)

argitasunak eman (4); **argitasunak ematen** (3); **argitasunak eskatu** (4); **argitasunak ezustean harrapatu** (18); **argitasunak ukaiteko** (3); **argitasunak ukan** (3); **buru argitasunak** (3); **buruzko argitasunak** (5); **egunsentiaren argitasunak ezustean** (18)

argitasunaren arabera (3)

zernahi argitasunekin (3)

argitasunen bat (4)

argitasunez ikusten (3); **buru argitasunez** (3)

argitasunik eman (7); **argitasunik ematen** (3); **argitasunik ez** (4); **argitasunik gabe** (3); **buru argitasunik** (4)

---

argiteria *(ETCn **1.039** agerraldi, horietatik **544** azken sei urteetan)* **1** *iz* toki bateko argien multzoa.

Argiteria jarri nahi dugu, espaloiak zabaldu, eta, azken batean, oinezkoari eta kaleko hiritarrari kalea seguruagoa eta bizigarriagoa egin. Berria - Euskal Herria

Pozez txoratzen, kanpora ateratzen zen bere **argiteriari** begiratu bat ematera, eta niri ere deitzen zidan ikustera joateko, hamaika aldiz ikusia baneukan ere. Fernando Rey

Hiri eta herri gehienen **argiteria** zeharo desegokia da, kalekoargien kopuru, mota eta antolaketari dagokionez bereziki. Berria - Gaiak

Horri laguntzeko, espaloiak zabaldu nahi ditugu, eta **argiteria** aproposa jarri. Berria - Euskal Herria

Eguberriko **argiteria** barregarri hari beha gelditu nintzen arnasa hartzen nuelarik gangiltzarraren posizio-argi berdearen pean. Koldo Izagirre

Sararen aurpegia bare dago, lasai, **argiteria** publikoa iristen ez den txoko honetako itzalak apur bat urtzen dituen ilargi urri baten argitasunak ukitua, deserosotasuna bere baitan baizik ez dago. Jon Alonso

Hiriko **argiteria** publikoa inauguratzen da. Askoren artean

2 ***argiteria publiko***

Baina ez, Maria Sararen aurpegia bare dago, lasai, **argiteria publikoa** iristen ez den txoko honetako itzalak apur bat urtzen dituen ilargi urri baten argitasunak ukitua, deserosotasuna bere baitan baizik ez dago. Jon Alonso

Hiriko **argiteria publikoa** inauguratzen da. Askoren artean

---

argitsu **1** *izond* argiz betea, distiratsua.

Ikasleak zerura igotzen ikusi zuen beraren arima aintzaz dirdaitsu, ilargia bezain eder, eguzkia bezain **argitsu** , hodeitxo zurian zerurantz igotzen zuen bitartean! Askoren artean

Espazio senza fine hartan nenbilela iruditu zitzaidan, leku etereo batean flotatzen astronauta baten moduan, eta nire aurrean, iluntasuna zipriztinduz, milaka izpi **argitsu** zeudela, izarrak eta planetak, asteroideak eta kometak. Bernardo Atxaga

Eritegia areto luze **argitsua** da, garbitasun handia dago hemen. Koldo Izagirre

Eraikin hura zut ageri zen ezin konta ahala leiho **argitsuz** horniturik, eta Jimmyri gainean erortzen zitzaion zeru irristakorretik. Lopez de Arana

Autoaren gurpilek ia ukitu egiten zuten hodei harroen itsasoa, eta zerua bukaerarik gabeko urdintasun **argitsua** zen eguzki zuri itsugarriaren azpian. Iñaki Mendiguren

Udazkeneko egun **argitsu** horietako batean. Oskar Arana

Egun epel zoragarria, gardena eta **argitsua** . Ander Irizar

Egun goibel batean, baliteke lentearen azalera guztia behar izatea; egun **argitsuetan** , berriz, estali egin daitezke ertzak, argia pasatzeko irekidura txikiago bat utzita. Irene Aldasoro

Gurutze **argitsu** hura ikustean, dragoi izugarri eta nazkagarriak ihes egin zuen behin betiko. Matías Múgica

Gurdi gainean eguzkiaren antzeko globo **argitsu** bat zegoen, gaua argitu zuena. Askoren artean

Nonahi dela, poz **argitsu** bat alaiki eta bizkor igaroko da gure bizitza bilbatzen duten atsekabe ugarien artetik, hala nola zaldi-kotxe distiratsu bat, alde guztietatik argia dariola. Jose Morales

Bozkario **argitsu** bat hazten eta handitzen ari zitzaion, unetik unera, bere baitan, eta hain zegoen gogo-beroturik, non arnasari buelta eman ezinik geratu baitzen une luze

batez. izan ere, zer ziren, zer balio zuten, zertarako nahi zituen beste perlak oro, galdetzen zion bere buruari etsipen **argitsuzko** irribarre batez. Anjel Lertxundi

UVIa areto handia da, **argitsua**, familiakoak hurbildu ahal izateko leihoz inguratua. Agurtzane Juanena

Andre gaztearen ametsetan, denda moderno **argitsu** bat ageri zen, etxe dotoreetako aretoak bezain aberatsa, bere erakusleihoko beiren araztasuna kale zabal bateko espaloian erakusten zuena. Karlos Zabala

Isilik zegoen, bekainak sabairantz jasorik, han goian jostari higitzen zen orban **argitsu** arrosakara bati begira. Jose Morales

Ikusten da zenbateko estimazioa izan duen santa **argitsu** honek. Pello Zabala

Andre gaztearen ametsetan, denda moderno **argitsu** bat ageri zen, etxe dotoreetako aretoak bezain aberatsa, bere erakusleihoko beiren araztasuna kale zabal bateko espaloian erakusten zuena. Karlos Zabala

Korridore ilun estu batetik, balkoi beiraduna zuen egongela **argitsu** batera eraman ninduen. Anjel Lertxundi

Ikuskizuna bukatzeko orduan soinuaren eta pirotekniaren fusioa ikaragarria da, eta erritmo eroari jarraiki ikusleek ere parte hartzen dute, ikuskizunari amaiera **argitsu**, koloretsu eta zalapartatsua emanez. Berria - Kultura

Argitsua da jakinduria, itzalezina haren distira. Elizen arteko biblia

Errenazimentuak "garai **argitsua"** izan nahi zuela azaldu zigun, eta eguzkia hartu zuela ikurtzat, Galileok unibertsoaren erdian kokatu berria zuen astroa. Bernardo Atxaga

Frantzisko dohatsuaren Ordenan sartu zen eta asko aurreratu zuen grazia eta bertutearen bide **argitsuan**, argiaren egiazko seme bezala azalduz. Askoren artean

Hipnotizatuta balego legez zihoan pasillo **argitsuan** barna. Harkaitz Cano

Hirurehun metro karratuko duplex **argitsua**, Gortariren gurasoen ezkon oparia. Patxi Iturritegi

Eskaileran musu ematen hasi zitzaidan, suharki, arnasestuka, eta berdin jarraitu zuen hall-ean ere, oso irekia eta **argitsua** den arren; geltoki batekoa bezalakoa, argitasun bortitz eta gordina baitu. Ramon Saizarbitoria

Zer eguzkia baino **argitsuagorik**? Elizen arteko biblia

Luminantzia, azkenik, objektu **argitsuak** azalera-unitate bakoitzeko duen argi-intentsitatea da. Josu Zabaleta

Cassius Clayk, konbatea hasi orduko, erdi dantzan paseatu zuen Madison Square Garden ikaragarri hartako ring **argitsua**. Joseba Sarrionandia

Leku polita zen, **argitsua**, itsasoari eta haize guztiei irekia. Felipe Juaristi

Korridore **argitsuetan** barrena, altzari ingeles eta frantsesak nabaritzen ziren nonahi, brontzezko eskultura klasikoak eta berriagoak ere bai, material ezberdinez egindakoak. Hasier Etxeberria

Han behean zegoen metropoli modernoaren bihotz nekagabea, neonezko arteria **argitsuek** zeharkatua: bankuak, museoak, pizzeriak, megadendak. Patxi Iturritegi

Gogoaren izu eta ilunpeok ezabatu behar dituzte, beraz, ez eguzkiaren izpiek ez egunaren gezi **argitsuek**, naturaren behaketak eta zientziak baizik. Xabier Amuriza

Ona etxea egokiro egituratua, erosoa eta **argitsua**; onak abereak beren gorputz bizidunekin. Imanol Unzurrunzaga

Jainkoak eta gizakiek maitatua zena zeruko egoitza txit **argitsuetan** hartua izan da. Askoren artean

Egun-argia bera ere **argitsuegi** zitzaion, distiratsuegi; argi motelduagoetan hobeto ikusten zuela ohartzen zen. Xabier Olarra

Izarretatik hartutako antzekotasunak hau irakasten digu: gorputzen arteko ezberdintasunak erreparatzean oker jokatuko zenuke, batzuk besteak baino **argitsuagoak** direla erreparatzean, ilunenak ezabatzen saiatuko bazina, edota **argitsuenen** parean jartzen. Imanol Unzurrunzaga

Adinean sartua izanagatik ere, azal fineko aurpegi **argitsua** zuen emakumeak. Anjel Lertxundi

· Jolas-gelako ateak kristal zehar-**argitsuak** ditu. Xabier Olarra

2 (adizlagun gisa)

Goi-goikoaren santutegi gainean dirdir dagien eguzkia eta distirazko hodeitan **argitsu** agertzen den ortzadarra bezala. Elizen arteko biblia

Gorputzaren gainerakoa, bai jatorriz eta bai gaixotasunaren eraginez beltzaran zena, zuri-**argitsu** agertzen zen orain, gorputz aintzatsuaren jantzi ederra irudikatuz. Askoren artean

Eguzkiak jotzen zuen, bero eta **argitsu**, eta dorreek eta etxeek itzal luze eta garbiak hedatzen zituzten mendebalderantz. Agustin Otsoa

Oskarbi zegoen, ilargia goian ezin **argitsuago**, ipurtargi jigant bat iduri. Joan Mari Irigoien

Ravelen La Valse ederra eta dekadentea ondo eman zuten, **argitsu**. Berria - Kultura

3 *izar aldakor urdin argitsu* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Izar aldakor urdin argitsuak, S doradus izar aldakor bezala ere ezagunak, ezagutzen diren izarrik argitsuenak dira, zeinen artean dauden unibertsoko izarrik masiboenetako batzuk. ETC-entziklopedia

Eta Carinae **izar aldakor urdin argitsu** hipermasibo bat da, Carina konstelazioan dagoena. ETC-entziklopedia

Izar aldakor urdin argitsuak edo Wolf Rayet izarrak hipererraldoi bezala sailkatuta dauden masibo handi eta distiratsuenak dira. ETC-entziklopedia

4 *izar erraldoi argitsu* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Izar erraldoi argitsu bat MKK sailkapenean II argitasun klaseko izar bat da. Izar hauen ezaugarriak izar erraldoi baten eta izar supererraldoi baten artekoak dira. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argitsu agertzen (3); **argitsu bat ikusi** (4); **argitsu batean** (4); **argitsu batek** (3); **argitsu baten** (4); **argitsu batera** (4); **argitsu batez** (3); **argitsu hura** (3); **argitsu zegoen** (3); **bezain argitsu** (4); **egun argitsu** (3); **gela argitsu** (3); **goiz argitsu** (4); **irribarre argitsu** (3)

argitsua da (5); **argitsua izan** (3); **argitsua zen** (5); **aurpegi argitsua** (3); **egun argitsua** (4); **oso argitsua** (4)

baino argitsuago (3)

argitsuak izan (3)

---

argitturri *iz adkor* ustezko iturburua.

Eta **argitturri**-aipu zeharkakoak Giselaz, nik soportatzen ez nituen zeharkako aipuak. Fernando Rey

---

argitu, argi(tu), argitzen **1** da/du *ad* argi egin; argia igorri; argiago bihurtu; ikusmena bihurtu.

-Sei hilabete egiten ditu itsasoan - **argitu** zuen Lucasek. Unai Elorriaga

Norbaitekin zaudelako pozik jarritako aurpegi hori **argitzen** duen pantaila. Antton Olano

Horrela jantzirik, bere kotxera igo, eta han joan zen, eta hor-hemenka ageri ziren leiho bakanetako distira motelak **argituriko** kale izugarri zabaletan barrena. Jose Morales

Hiriak otoitzak murmurikatzen ditu, eguzkiak terrazak **argitzen** ditu, laster agertuko dira patioetako biztanleak. Jon Alonso

"Ekainaren 26an, ostegunean, eguna **argitu** bezain laster berriro mugitu behar izan zuten gudariek, artean Manciniren promesetan sinesten zuen Defentsa Juntaren aginduz. Jokin Urain

Zerua **argitu** ez **argitu** zegoen artean; lau liztor beltz zetozen hiri aldera. Anjel Lertxundi

Hari **argituko** nion zer nahi nuen: gutuna zuri helaraztea beste inork jakin gabe. Arantxa Iturbe

Bautistak, pinu-orratzekin, zoko hura **argitzeko** zuzi bat egin zuen segituan. Koro Navarro

Eliza bat ematen zuen lurrin gozo betegarria zabaltzen zuten kandelek **argitutako** ganbera hark, latoiaren distira bazter guztietan, beira polikromatuak klaraboietan, zur ilun garestia paretetan. Koldo Izagirre

Argitu zuen eguna eta artean gu han geunden zain Federico tifoiak eragindako desastreak konpontzen. Pello Lizarralde

Ia hiru urte igaro ondoren **argitu** zen ustez sekula **argituko** ez zen hilketa. Gotzon Garate

Azkenean, irakurketa amaitu ostean ere **argitu** gabe jarraitzen zuen Lauaxetaren zalantza nagusiak: Juan Luis Zabala

Atarira jaitsi ginenean, izebak argi fluoreszentea piztu zuen, eta etxea, ilunpetan, **argitu** egin zen gure atzean. Juan Kruz Igerabide

Itandi hitzak merezi du **argitzea**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Berehalako batean **argitu** zen Demba jaunaren aurpegia. Anton Garikano

Nahiz eta hizkuntzarekiko interes filosofikoa aspaldikoa den, ia beti bestelako arazo filosofikoak **argitzeko** aztertu da hizkuntza. Askoren artean

Ideia berriak omen dauzka zuek **argitu** ezin duzuen horren inguruan. Fernando Morillo

Esaten nionean, amak sinetsi ez eta amona bidaltzen zuen gurera, gezurra esaten ote nion **argitzera**. Xabier Montoia

Neon berdeak Alexen aurpegi zatiak **argitzen** zituen, baina tarteko zuloguneen itzalek ageri zuten indar handiena. Fernando Morillo

Errebelazioak **argitu** zuen Paulo apostolua Damaskorako bidean eta hark eman zion kristau fedea... Josu Zabaleta

Goazen bada, jarrai diezaiogun egunak **argitu** baino lehen etxetik atera eta Abiapuntuaren A-raino iritsi den ibiltari horri. Bernardo Atxaga

Hasieran ez zuen sua hartzen ia, gero txinparta batzuk izaten ziren, sabaia **argitzen** zutenak. Josu Zabaleta

"Hitz luzeegia dela dio", **argitu** zidan Mary Annek. Bernardo Atxaga

Carro batailoian egon zen, komunistekin, geroagoko batean **argituko** zidan moduan. Edorta Jimenez

Baina eztabaiadan aurrera, ispiluari eusteak auzia gaiztatu egiten du, **argitu** ordez. Juan Garzia

Gabeziaren adibide gisa, irudi bat: egun batean, ilunduta, kale osoan **argituta** zegoen erakusleiho txiki bakarrean distiratuz, karamelu arrosa batzuk, obalatuak, zuriz hautseztatuak, zelofanezko zorrotxoetan. Joseba Urteaga

Aurrera segitu dut, buruan dudan kezka **argitu** ezinik... Xabier Etxabe

Eguna **argitzen** ari zunan, eta aurreko etxeetako leihoak ilun zeudenan. Eskarne Mujika

Isilean sartu nintzen, leiho bazterretik ohe barreneraino sartzen zen argi zerrendak behatzak **argitzen** zizkion amari, izararen ertzean ikusten ziren. Joseba Sarrionandia

Aldareko bi kandelak soilik **argitutako** eliza hutsean, On Camillo berriketan ari zen Kristo gurutzekoarekin. Koldo Biguri

Emazteak irri haien arrazoiaz galdegin zion, baina nekazariak **argitu** zion ez zeukala ezertxo ere esaterik, bestela hil egingo baitzen. Patxi Zubizarreta

Ilargi beteak gau osoan **argituko** zuen. Eneko Bidegain

Eskerrik asko Dominic Rossiri, jatorrizko testuko zalantzak **argitzen** laguntzeagatik. Antton Olano

Nahita ala istripuz, ez zen inoiz **argitu**. Itziar Otegi

Partziala dela beti azterketa, txinpartak ez duela osotasuna **argitzen**. Iñigo Aranbarri

Ba, beharbada, tipitik mundu hortan gehiago **argitua** izan naizelako. Menane Oxandabaratz

Izarrek ondo **argitu** arte aritu ziren. Iñigo Aranbarri

Idoiak bere jokabidearekin erakusten zidan ez ondoriorik ateratzeko susmo ahul eta oinarri gutxikoekin; edo gauzak **argitu**, edo hobe zela ahaztea. Juan Kruz Igerabide

Kontu hau **argituz** doan neurrian informazioa helaraziko dizuegu. Paddy Rekalde

Agian tupusteko bat, errailetik irtetea, inoiz **argituko** ez zitzaigun nahaste bat. Karlos Linazasoro

Ke arteak **argitu** eta gero, elkarri begiratu genion berriro, tren-geltokia gure ikusmenetik kanpo zegoen jada. Mirentxu Larrañaga

Eguna **argitu** du, eta zuhaitz dorreetan sua dago. Lander Garro

Biharamunean euria ari zuen **argitu** zuenean. Fernando Rey

Gorago aipaturiko gutunak **argitzen** du puntu hori. Juan Garzia

Meditatuz saiatu da Azurmendi teknikaren enigma **argitzen**. Markos Zapiain

Gure apezpikuak Izpiritu Sainduak **argituak** dira beraz, bainan argi horren berri ezin jakin haien ondotik! Xipri Arbelbide

Alabaina, goiz **argitzen** du eguna, eta lehen orduetatik harrabotsa zokorik baztertueneraino ere zabaltzen da. Patxi Zubizarreta

-Armairuan zintzilik jarri behar da - **argitu** du Lainezek. Pello Lizarralde

Historiagilek ez dute oraino aro hori aski **argitu**. Piarres Xarriton

Dionisosek hasieratik **argitu** zion, pisuan hartua bazuen, tipo jatorra iruditzen zitzaiolako zela, eta ez beste ezerengatik. Unai Iturriaga

Argitzen hasia zen eguna, eta eguzkiaren norabide berean jarri zituen ardiak artzainak. Xabier Aranburu

Hitzok idatzi hutsarekin kopeta **argitzen** zait. Jesus Mari Mendizabal

Gaurko hego xuriak **argitu** du mendia. Piarres Aintziart

Argituko dut zergatia: ni hona ekarri nindutenean, txita baten itxura beteko lizun-orban bat nabarmentzen zitzaion leihoaren azpiko horma-puskari. Anjel Lertxundi

Eguzki izpiek ez dute sekula nire moduko hondamendirik **argitu**! Xabier Paya

Tximista batek **argitzen** du euri-sarea. Anjel Lertxundi

Denbora luzez pentsamenduetan galduta ibili zen, eta azkenean irribarre hotz batek **argitu** zion aurpegi beltzarana. Julen Gabiria

Haien artean Maimonek beste kapitulu batzuk sartzen ditu bere tesiak eta iruzkinak **argitzeko**, dirudienez. Xabier Kintana

- Nire aitaren lagun bat - **argitu** zidan noizbait libratu zenean-, postura egin zioat! Koldo Izagirre

Antonioren aurpegia **argitzen** ari zela ikusi nuen. Juan Martin Elexpuru

Ondorengo elkarrizketak **argituko** zidan, apika, ordutik aurrera zer egin nezakeen. Iban Zaldua

2 (era burutua izenondo gisa)

Horrelako gizon jakintsu eta **argituak** izan ditugu gure etxondotik bi urratsetan, eta maleruski ez ditugu kasik batere ezagutzen. Herria

Oraiko ofiziale **argituek** behar bada lehengoari edertasunez nagusitua agertuko daukute. Herria

Gazte batzu aurkitu ginituen, herriko mutiko erne eta **argituenetan**, bi inginadore heien eta apezaren ardurapean borondatez ari zirenak. Herria

Karta eta plano inter-aktiboak egiten ditu, hala nola karta batetan puntu **argituek** erakusten dute beribil bat nondik nora dabilen, edo oraino enpresa batek karta batean argituak ikusten ditu bere saltzaileak non dabiltzan, beren sakelako telefonoak erreferentzia ukanez. Herria

Iraganeko itzal **argituak**. Berria - Kultura

Begiak ilundurari ohitzeko denbora emateko, sarreran Camille Claudelen argazki **argituek** egiten diote ongietorria bisitariari. Berria - Kultura

Zein izan zen gorriek antolatutako pastorala eta zein,aldiz, xuriek paratu zutena aditu **argituenek** soilik esango lukete. Berria - Kultura

Iluntasun **argituan** bere azeri aurpegi luze, gorri, mozkor hura erakutsi zidan, bere masail-bizar laztuak eta sudur heze sentikorra. Koro Navarro

Belarri **argituen** kontua, esate baterako. Bernardo Atxaga

Andresek kalean aurrera jarraitu zuen, kontsumotako garita **argituaren** aurretik igaro zen, maleta lurrean utzi zuen eta haren gainean eseri zen, zain. Josu Zabaleta

Hala nola frantses, española, anglesa noizdanikakoak diren eta zertarik eginak, erranen dautzute xuxen gizon **argituek**. Xipri Arbelbide

Harryk ingurura begiratu zuen konpartimentu **argituan**. Iñaki Mendiguren

Eguzkiak zeharka jotzen zuen Rambuteau kalea, eta Pirouette kalearen sarbideak zulo beltza zirudien hango fatxada **argituen** artean. Karlos Zabala

Bart arratsean beste denbora-pasa bat aurkitu nuen: kataleju batez beste etxeetako bizilagunen gela ongi **argituak** espiatzea. Josu Zabaleta

Baina beste gauza bat da ondorengoa: egia aurkitua edo **argitua** gure lagun hurkoari eskaini nahi izatea, maitasunez. Jenaro Garate

Gizon **argituenek** ere baimendu zituzten injustizia kaltegarri eta onartu hauek, eta errepublika libreenek ere erabili zituzten, eta hau gizartea familien batasun gisa ikusten zutelako gehiago, gizonen batasun gisa baino. Juan Martin Elexpuru

Zalaparta hori zuten beti lagun martxan ziren trenek, bakegaraian gaueko trenek leiho **argituen** karratu eta errektangeluak lagun izaten dituzten bezala. Fernando Rey

Pasabide gaizki **argituak**, eskailerak, ataka eta berriz kalean, lanbropean. Iñaki Zabaleta

Herri baldarren erlijiotzat daukagu idolatria, eta xedetzat izaki espirituala daukan erlijioa, berriz, herri **argituen** erlijiotzat. Iñaki Iñurrieta

Ez dakit deus auzi horretaz, bakarrik apezaren aurpegi fin eta **argituak** hunkitu nauela. Piarres Aintziart

Kanpoan, ibaiertzean, agian jendea egongo zen, elurretan zutik, leiho **argituetara** begira, balsa entzuten. Irene Aldasoro

Tiratzailea urrun kokatua zegoen eta metraileta zaharrez tiroka hasi zen leiho **argituaren** kontra. Koldo Biguri

Baina metatze eta neurririk gabeko ugaritze hori aldi berean suhartasun baten emaitza da jainkotzearen zentzu jatorrizkoen eta benetakoenean edo salbuespenezko esperientzia horrek erasan eta eraldatua izan denaren jainkozko horditze **argitua**. Joan Mari Lekuona

3 (adizlagunekin)

Biharamunean, aski goiz iratzartzen naiz, zeldako argia itzalia da, baina zeldaren barnean aski argi da halere, leihatila bortizki **argitua** baita kanpotik. Filipe Bidart

Urtegiko larrialdi plana ezarri gabe, Ebroko Ur Konfederazioak ez zuen Itoitz betetzen hasterik, eta laster **argitu** zuten erakunde horretako eta Nafarroako Gobernuko agintariek ez zirela horrelakorik egiten ari. Edurne Elizondo

-Norbaitek hegoaldetik edo bestela sortaldeetatik ekarria izaten duk belarra -haren nondik norakoa erabat **argitu** nahi barik erantzuten zidan, behin eta berriro-. Edorta Jimenez

Ohildu, guztiz **argitze** aldera, egotzi aditza baino esanahi larriagokoa da; inor ohiltzen badugu, erabat egozten dugu, gure ondotik bota egiten dugu, urruti". Oskar Arana

Beti letra etzan luze-mehe berak, ziraun zuri zaurituak aspaldi **argitzen** ez duen neonezko errotuluan mugigaiztuak. Aingeru Epaltza

Arazoa sakona eta konplexua da, eta nekez **argitu** daiteke aritmetika soilaz. Iñaki Heras

Baina xehetasun bakar batek hobeki **argituko** dizu adierazi nahi dizudana eta, hartarakotzat, Gipuzkoarat egin bidaia hari atxikiko natzaio. Joan Mari Irigoien

Ni harritu samar nengoen, eta ez nuen asmatzen zer asmo ote zuen; baina berehala **argitu** zidan berak. Josu Zabaleta

Goiza ilun samar **argitu** zen eta, etxean geratzeko amaren aholku guztiei entzungor, hantxe nintzen, Bavariako mahaien artean, eguneroko hitzorduari eutsiz. Alberto Ladron Arana

4 *adimena argitu*

Zentzumenak zorroztu, **adimena argitu**, oroimena zabaldu eta nahimena indartu ahala, zentzumenak eta adimena eta nahimena eta oroimena erabiliko dituen gogoa argitzea eta indartzea da. Jenaro Garate

Kapitulu honetan zen anai Antonio ere; honi Jaunak **adimena argitu** zion, Liburu santuak uler zitzan, eta herri osoari ezti berria baino hitz gozoagozJesusi buruz hitz egiteko dohaina eman zion. Askoren artean

Orduan, **adimena argitu** zien, Liburu Santuak uler zitzaten. Elizen arteko biblia

5 *begia argitu*

Kattalini **begia argitzen** zaio eta irriño bat uzten du hortzen artetik eskapatzera, lorea eguzkiari irekitzen zaion bezala. Eneko Bidegain

Begia argitu zion oroitzapenak. Irene Aldasoro

6 *goiz argitu*

Alabaina, **goiz argitzen** du eguna, eta lehen orduetatik harrabotsa zokorik baztertueneraino ere zabaltzen da. Patxi Zubizarreta

7 *pareta argitu*

Halako batean, kobazuloaren txoko batean argi estrainio bat sumatu zuten, gero eta handiagoa bihurtuz joan zen argi bat, eta, berehala, **pareta argituan** itsatsirik, itzal izugarri bat. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

argitu ahal (32); **argitu arte** (68); **argitu aurretik** (15); **argitu baino** (32); **argitu baino lehen** (22); **argitu behar** (120); **argitu behar da** (17); **argitu behar izan** (11); **argitu beharko** (54); **argitu beharra** (30); **argitu beharreko** (25); **argitu beharrekoa** (11); **argitu bitartean** (21); **argitu da** (18); **argitu dio** (13); **argitu ditu** (11); **argitu du** (206); **argitu duenez** (41); **argitu dute** (36); **argitu egin** (56); **argitu egin zen** (15); **argitu egiten** (17); **argitu eta** (98); **argitu ez** (51); **argitu ezin** (12); **argitu gabe** (119); **argitu gabe dago** (15); **argitu gabe dauden** (11); **argitu gabeko** (21); **argitu nahi** (137); **argitu nahi du** (16); **argitu nahi dute** (17); **argitu nahi izan** (49); **argitu nahian** (27); **argitu ondoren** (12); **argitu orduko** (30); **argitu zen** (30); **argitu zer** (24); **argitu zergatik** (11); **argitu zidan** (43); **argitu zien** (13); **argitu zion** (77); **argitu zituen** (29); **argitu zitzaion** (14); **argitu zitzaizkion** (19); **argitu zuen** (446); **argitu zuen atzo** (13); **argitu zuenean** (19); **argitu zuenez** (55); **argitu zuten** (47); **argitu zutenez** (11); **asko argitu** (14); **atzo argitu** (12); **aurpegia argitu** (13); **bat argitu** (34); **batek argitu** (30); **begiak argitu** (21); **begiak argitu zitzaizkion** (14); **berak argitu** (14); **berehala argitu** (12); **dena argitu** (17); **egoera argitu** (12); **eguna argitu** (100); **eguna argitu arte** (15); **eguna argitu baino** (16); **eguna argitu orduko** (15); **eguna argitu zuenean** (16); **egunak argitu** (12); **erabat argitu** (26); **ez da argitu** (19); **ez du argitu** (52); **ez dute argitu** (36); **ez zuen argitu** (66); **ezer argitu** (18); **gauzak argitu** (18); **guztiak argitu** (16); **hori argitu** (29); **nola argitu** (11); **nondik norakoak argitu** (15); **norakoak argitu** (15); **oraindik argitu** (42); **oraindik argitu gabe** (18); **zalantzak argitu** (15); **zerbait argitu** (11)

---

argitxo 1 *iz adkor* argi xumea.

Izar deitu izan diegu goiko **argitxo** horiei, eta baita beste edonon dizdiz egiten duen begitxo ttiki guztiei ere. Pello Zabala

Denda zabalik zegoelako adierazle ziren eragiketa guztiak egin zituen: errotulutxoa itzulbiratu, pertsianak jaso, eta erakusleihoko **argitxoak** isiotu. Josu Landa

Ia erabateko infernu baten erdian gaudela onarturik ere, infernu ez den **argitxo** bat bilatzen saiatu behar dugu infernu horren erdian. Anjel Lertxundi

Argitxo bat pizten den moduan etorri zitzaidan ideia. Juan Garzia

Argitxo batek dir-dir egin zuen beste leiho batean. Jose Morales

Berak eman dit arrastoa, berak piztu du tunel iluneko **argitxoa**. Joxerra Garzia

Argitxoak ikusten ziren herrixkako etxeetan. Jose Morales

Mendi-arte estu samarrean luzatzen den harana hartzen du Caracasek, eta aurki ikusiko ditugu **argitxoak** mendi magaletan, milaka, milioka bonbila piztuta kilometro askotan. Pako Aristi

Beste batzuetan, ordea, zaratak gora egiten zuen, boladaka, oldarka, mailadi apurtu batean gora lasterka balihoa bezala; behera erori, berriz lasterka igotzen hasi, eta azkenean kolore biziko milaka **argitxotan** lehertzen zen, gorri, urdin eta berde, su-festak bezala. Jose Morales

Nahiz mundua sekulan baino beltzagoa zeukan eta jasan ahal baino gehiagokoa bere barneko ilundura samina, bere baitan egin zuen ez zuela deus gisaz hiltzerat utzi behar amaren musuak egun hartan piztua zion **argitxo** eztia. Janbattitt Dirassar

Mundutxo hura huskeria bat besterik ez zen, izpi bat hutsune infinitu ilunean, **argitxo** motel bat milioika eta milioika **argitxo** motelen artean. Bernardo Atxaga

Harik eta, halako batean, magnetofonoaz ohartzen den arte, eta piztuta dagoela adierazten duen **argitxo** gorriaz, eta hizketa hura grabatzen ari zaizkiola. Iñaki Iñurrieta

Punta-puntako grabazio-estudioa; sekulako kontsola, palanka eta **argitxo** pila batekin; magnetofono sorta bat; proiektagailu bat; oihalez estaliak hormak; zoruaren gainean, moketa. Jon Muñoz

· Eta badiako ahots ezkutuak eta batelen mugimenduak kontrabandozkoak bezala izango dira, eta bonbilla **argitxoak** arrain gorrien moduan islatuko dira itsasoaren ilunean. Joseba Sarrionandia

2 irud/hed

Maizarengan, aldiz, **argitxo** bat piztu zen. Migel Angel Mintegi

Norbaitek haren buruan **argitxo** bat piztu balu bezala izan zen. Iñaki Mendiguren

Une horretan Zigorren buruan **argitxoa** piztu zen bigarren aldiz denbora gutxian. Bernardo Atxaga

Atea berriro itxita, **argitxo** bat piztu zitzaion garunean, eta gero **argitxo** gehiago hasi ziren dir-dirka bere buruan eta irribarre egin zuen, jesarri eta papera eta lapitza eskuratu zituen.-Aurkitzea zure lana da -esan zion, eta adi begira gelditu, jakin-minez, **argitxo** bat pizturik-edo bere baitan-. Bego Montorio

Glosolaliak eta beste bildumako lanek ere **argitxo** bat erakusten dute, guztiek bukaera irekia duten heinean. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argitxo bat piztu (3)

argitzaile *(orobat **argitzale** g.er.)* **1** *izond* argitzen duena.

Gure eliza kanpoko hur handiko sahets baten argitzeko 3 tresna **argitzaile** faltatu dira iragan astean, norbaitek eremanak. Herria

Hori bezain egia da, Vitruvioren testuarentzat irudi horiek izango luketen ahalmen **argitzaile** horri buruzko sineskera konpartitu horrek aberastasun izugarrizko ondorioak izango zituela ondorengo tradizio vitruviar guztian. Santiago Iruretagoiena

Beharbada urak etiopiar mendi garaien barruan handituko dira, eguzki oro- **argitzaileak** bere errainuen beroz urtzen dituen elur zuriak zelaietara jaisten direnean. Xabier Amuriza

Gaur, baiki, galdu dugu gure aurrekoen ikuskera oro **argitzaile** hura. Anjel Lertxundi

Belarriak makal-makal eginda, eskuan hartu zenuen baserrira joan aurretik ilusioz erositako azken gramatika-kezka-guztien **argitzailea** . Josetxo Azkona

Badut ustea zenbaitek estakuru edo atzaki ttipia aski zutela **argitzaile** jaun horren ikustera joaiteko. Herria

Gero Erret Kontseilu Goihenak erabaki zuen delako ene Eskuliburua Gaztelan inprimatuko zela eta, kasik urte osoa iragan nuen, inprimatzalearen etxen hetsirik, liburuaren berrikusten eta emendatzen bost iruzkin **argitzaleekin** , eskaini nizkionak goizegi bere erreinu guztiei heriotzak lapurtu zien Karlos printze handiari. Piarres Xarriton

2 (adizlagun gisa)

-Niri esker dago kalean -jakinarazi zion, **argitzaile** eta zirikatzaile-. Migel Angel Mintegi

---

argitzal **1** *iz* argi gutxi dagoen egoera.

Argitzal honetan aztarnok irakurtezinak dira, kronistak kaligrafia ona duen arren. Jon Alonso

Apirilean gaude, arratsak luzeak dira, eguna zabaltzen ari da, agian horregatik Raimundo Silvak ez du argia pizten, horregatik eta doi hasi den **argitzal** hau ez hondatzeko, nahiz eta, aldi berean, **argitzalak** sosegua kentzen dion. Jon Alonso

Beste aldean Mario, nire ahizpa Paola eta Terni: mendia gorrotatzen zuten eta txoratuak zeuden gela itxi eta epelekin, **argitzalekin** eta kafetegiekin. Fernando Rey

Mendebalde modernoko pintura-eskola batek, ikus-arte helenikoen fase postarkaikoko ideal naturalistak dudarik gabe onartu zituenak, **argitzalaz** egindako inpresio bisualak adierazteko zenbait metodo asmatu zituen bata bestearen ondoren. Iñaki Mendiguren

Ardo-koloreko dirdaiak muselinazko gortinak tindatu eta gelaren **argitzal** urdinera iragazi zen. Lopez de Arana

Erromantikoak ziren gutxiena soportatzen nituenak: dantza lotuetan **argitzalean** musuka eta musuka. Fernando Rey

Emakumea **argitzalean** dagoen gela batean sartu da, gero makurtu da telefonoa beste hartune batean konektatzeko. Jon Alonso

Mendebalde modernoko pintura-eskola batek, ikus-arte helenikoen fase postarkaikoko ideal naturalistak dudarik gabe onartu zituenak, **argitzalaz** egindako inpresio bisualak adierazteko zenbait metodo asmatu zituen bata bestearen ondoren. Iñaki Mendiguren

2 *pl* alde argiak eta itzalak.

Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak **argitzalak** aurkeztu ditu, datutan. Berria - Euskal Herria

3 (izenondo gisa)

Inprimatzalearen etxen hetsirik, liburuaren berrikusten eta emendatzen bost iruzkin **argitzaleekin** , eskaini nizkionak goizegi bere erreinu guztiei heriotzak lapurtu zien Karlos printze handiari. Piarres Xarriton

---

argitzapen *iz* argitzea, argiago bihurtzea, azaltzea.

Nik erdizka baizik ez nituen **argitzapen** haiek aditu; bertan denbora laburra egingo nuen segurantzian. Txillardegi

Jela baino hotzago utzi ninduten, ordea, **argitzapen** horiek. Txillardegi

Paganismo primitiboan gorpuzturiko etaparekin konparatuz, haien **argitzapen** erlatiboa aurrerapen miragarria zen. Iñaki Mendiguren

Gizabanako sortzaileen ekintza erretiro-eta-itzulerako mugimendu bikoitz gisa deskriba daiteke: erretiroa bere **argitzapen** pertsonala lortzeko, itzulera bere lagun hurkoak argitzeko lana egiteko. Iñaki Mendiguren

---

argitze **1** *iz* argi egitea; argia igortzea; argiago bihurtzea.

Zor dizut **argitze** bat pundu honetan: zergatik hasi naiz bada Arnegizaharretik eta ez, zuek erran bezala, Arnegiko zubitik? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gelan dugun **argitze** lausoarekin gerraondo paisaia erreparatu eta barreka hasi gara, eta musuka. Joseba Sarrionandia

Lauko nota bat, damu-arrangura bat, zerbaitetan gutxiago zarela bat-batean **argitze** bat, zeina aldiro betiereko, behin betiko baitzirudien. Juan Garzia

Oro har, esanahiaren ikerkuntzak gainditu behar dituen oztopo eta eragozpenak asko direla ematen du, hizkuntz esanahia daramaten elementuak zeintzuk diren eta haien arteko loturak argitu ondoan ere, eta **argitze** hau egin ezean esanahiaren ikerkuntzari ekitea ezinekoa da erabat. Itziar Laka

Tresna bat jarri dugu ELAren eta LABen artean eztabaida honi ekiteko, eta **argitze** estrategikoa eginda, errepide mapa bat lantzeko unea etorriko da. Berria - Euskal Herria

Argitze filosofikoaren eskubide eta mugak. Askoren artean

Romain Garyren ipuinotan ere badago nolabaiteko strip-tease bat, badago suspense bat, **argitze** pausokatu bat. Joxean Agirre

Pozgarria, begitarte frankotan ilun edo soraio horien **argitze** bat-batekoa. Xabier Montoia

2 (hitz elkartuetan)

Argitze -agiria egin eta isuna iritsiko zaiela jakinarazi zieten. Berria - Harian

Tiroketaren inguruan Ertzaintzak hasieran egin zuen **argitze** -agiririk ere ez da ezagutzen. Berria - Euskal Herria

Hiru pausotan banatzen da ibilbide espirituala -garbitze bidea, **argitze** bidea, perfektu egite bidea-. Askoren artean

Emaztea, berriz, gela batera arrastaka eraman eta giltzapetu egin zuen, negar eta **argitze** saio guztiei entzungor. Martin Anso

Gaiak izan zuen sonagatik eta formalki hurrenkeraren bidez jaso nahi zen edukiak oraindik ere duen garrantziagatik, merezi du terminoen gutxieneko **argitze** saio bat egitea. Lourdes Oñederra

Tradizio biek azpimarratzen dute teoria zientifikoaren egituraren **argitze** -lana, egun egitura hori era ez-axiomatikoan edo axiomatiko ez-formalean gauzatzen bada ere. Askoren artean

Gauza jakina da [...] sarritan gauza bat esan beharrean bestea esaten dela; esaldi berak bi esanahi ezberdin dituela aldi berean; ageriko zentzu batek, mundu guztiak ulertzen duena zailtasunik gabe, bigarren bat ezkuta dezakeela, esoterikoa edo profetikoa, **argitze** lan burutsu batek edo denboraren higadurak agerraraz dezakeena. Xabier Arregi

3 ***gau argitze***

Jainkoa eta Ama Birjina ziek eman dautazie egun araste hun, eman ezazie **gau argitze** hun. Herria

---

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argitze agiria (3); **argitze aldera** (22); **argitze bat** (3); **argitze bidean** (3); **argitze lana** (3); **gau argitze hun** (3)

argitzea baino (3); **argitzea da** (19); **argitzea ere** (3); **argitzea eskatu** (8); **argitzea espero du** (4); **argitzea ez dela** (3); **argitzea galdegin zion** (4); **argitzea izango da** (3); **argitzea nahi** (5); **da argitzea** (4); **dagoen argitzea** (3); **den argitzea** (7); **diren argitzea** (4); **duen argitzea** (3); **ez argitzea** (7); **guztia argitzea** (3); **guztiak argitzea** (4); **guztiz argitzea** (3); **hori argitzea** (3); **hura argitzea** (3); **jarrera argitzea** (3); **kontzeptuak argitzea** (3); **lehenbailehen argitzea espero** (3); **zalantzak argitzea** (4); **zen argitzea** (5); **zuen argitzea** (3)

eguna argitzean (35)

argitzearekin batera (5); **eguna argitzearekin** (4)

argitzearen aldera (3)

afera argitzeko (6); **ala ez argitzeko** (5)

argitzeko ardura (6); **argitzeko asmoz** (11); **argitzeko aukera** (4); **argitzeko baliagarri** (3); **argitzeko balio izan** (3); **argitzeko bidea** (3); **argitzeko dago** (7); **argitzeko daude oraindik** (4); **argitzeko dauden** (3); **argitzeko eran** (3); **argitzeko ere eskatu** (4); **argitzeko eskaera** (3); **argitzeko eskatu dio** (11); **argitzeko eskatu diote** (6); **argitzeko eskatu du** (10); **argitzeko eskatu dute** (3); **argitzeko eskatu zien** (7); **argitzeko eskatu zion** (16); **argitzeko eskatu zuen** (8); **argitzeko eskatuko** (3); **argitzeko eskatzen** (4); **argitzeko exijitzen** (3); **argitzeko ez** (6); **argitzeko gai** (3); **argitzeko gauza** (3); **argitzeko gisan** (4); **argitzeko ikerketa abiatu** (6); **argitzeko ikerketa batzorde** (3); **argitzeko ikerketa hasi** (3); **argitzeko ikerketak** (4); **argitzeko lanean ari** (3); **argitzeko parada** (3); **argitzeko partez** (3); **argitzeko prest** (5); **argitzeko puntu** (3); **argitzeko xedez** (4)

arrazoiak argitzeko ikerketa (4); **auzia argitzeko** (8); **baten heriotza argitzeko** (3); **bidea argitzeko** (4); **burua argitzeko** (3); **da argitzeko** (3); **dagoen argitzeko** (7); **dauden argitzeko** (4); **den argitzeko eskatu** (3); **dena argitzeko** (3); **diren argitzeko** (12); **dituen argitzeko** (4); **duen argitzeko eskatu** (8); **duen jarrera argitzeko** (3); **duten argitzeko eskatu** (6); **duten jarrera argitzeko** (5); **edo ez argitzeko** (10); **egoera argitzeko** (3); **erabat argitzeko** (3); **eragin zuen argitzeko** (5); **erantzukizunak argitzeko** (7); **esanahia argitzeko** (5); **eskatu zion argitzeko** (5); **etorkizuna argitzeko** (3); **gauza batzuk argitzeko** (3); **gauzak argitzeko** (15); **geratuko den argitzeko** (3); **geratzen dira argitzeko** (3); **gertakariak argitzeko** (5); **gertatu zen argitzeko** (15); **gertatutakoak argitzeko** (3); **guztiak argitzeko** (9); **hau argitzeko** (13); **heriotzaren arrazoiak argitzeko** (8); **hilketa argitzeko epaiketa** (3); **hilketak argitzeko** (4); **hobeki argitzeko** (3); **hori argitzeko** (28); **horiek argitzeko** (4); **horren argitzeko** (5); **hura argitzeko** (3); **ideiak argitzeko** (5); **ilunak argitzeko** (3); **inguruko gorabeherak argitzeko** (3); **istripua argitzeko** (4); **istripuaren arrazoiak argitzeko** (5); **jarrera argitzeko eskatu** (16); **jarrerak argitzeko** (3); **jatorria argitzeko** (7); **kasua argitzeko** (8); **kezkak argitzeko** (4); **kontuak argitzeko** (5); **kontzeptua argitzeko** (3); **lehenbailehen argitzeko eskatu** (5); **misterioa argitzeko** (4); **nahi duen argitzeko** (3); **nondik norakoak argitzeko** (14); **norakoak argitzeko ikerketa** (3); **oraindik argitzeko** (6); **ote zuen argitzeko** (3); **salaketak argitzeko** (3); **zalantza argitzeko** (3); **zehazteko eta argitzeko** (3); **zein den argitzeko** (5); **zen argitzeko ikerketa** (4); **zer den argitzeko** (4); **zergatia argitzeko** (4); **zergatiak argitzeko** (4); **ziren argitzeko** (3)

dena argitzera (4); **zalantzak argitzera** (3)

argitzerat egin (3)

argitzerik ez (6); **argitzerik izan** (5)

---

argitzeke *adlag* argitu gabe.

Arrazoiak, **argitzeke**. Berria - Ekonomia

Suediako lehen ministro sozialdemokrataren heriotza, hala ere, **argitzeke** dago. Berria - Mundua

Heriotzaz gain, badago Castor garraioaren inguruan **argitzeke** dagoen beste gai bat: oker hutsa edo apropos eginiko engainua izan da trena zama agiri okerrekin bidaiatu izana? Berria - Gaiak

Argitzeke dagoen beste puntu garrantzitsu bat Kantabriako (Espainia) taldeen parte-hartzeari buruzkoa da. Berria - Kirola

Martin Joxe "errotanekoak" aurkitu zuen oraindik eguna **argitzeke** zegoela, esnea banatzen hasi ohi zen orduan, hain zuzen. Joxemari Urteaga

Argitzeke dauden arrazoiak tarteko, Opel Astra auto bat bidetik atera zen. Berria - Euskal Herria

Alabaina, atzo iluntzean **argitzeke** ziren arrazoi batzuengatik Egiptoko Hurgada portutik 70 kilometro itsas zabalean hondoratu zen ontzia, ostegun gaueko hamarrak eta gauerdi artean. Berria - Mundua

Batik bat perpaus gramatikalen taldea aurretiaz emanda dagoela onartzea gehiegizkoa da, eta ezkutuan eta agerian aipatu dugun arren, "soiltasuna" zer ote den **argitzeke** gelditu da. Itziar Laka

Jainko maitea, Horazio, nolako izen laidoztua dudan, honela **argitzeke** geratuz gero gauzak, atzean uzten! Juan Garzia

Nire iritziz, oinarrizko arazo bat geratzen da **argitzeke** legearen menpeko etika guztietan: giza eskubideen arazoa. Jenaro Garate

Gaztearen heriotzaren inguruko gauza asko dago **argitzeke**. Joseba Sein nora eraman duten **argitzeke**. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argitzeke dago oraindik (3); **argitzeke daude** (5); **argitzeke dauden arrazoiengatik** (3); **arrazoiak argitzeke** (4); **oraindik argitzeke** (8)

---

argiune *iz* argitasunezko une, gune edo aldia. ik **argigune**.

Harryk, haritz zahar baten adar nahasien artetik, **argiune** bat ikusi zuen aurrerago. Iñaki Mendiguren

Fionn izan ezik, beste guztiak **argiunera** irten ziren ilara zabal bat osatuz, armak airean zeuzkatela erasoren bati aurre egiteko gertu.-Ongi nago! -oihu egin zuen gorantz, posta-seilu baten tamaina zuen **argiunerantz**, tranpola irekirantz, alegia-. Joanes Urkixo

Basoko **argiune** bateko haitz artean zegoen zulo batetik zetozen negarrak. Jon Maia

Behean, **argiune** itzaltsu batean, Snape zegoen, baina ez bakarrik. Iñaki Mendiguren

Orduan, basoko **argiune** batera igaro, eta. Iñaki Mendiguren

Egoera honek luze iraungo balu eta askoz ere mota eskasagoko ikuskari guztiak itzali, eta so gagozkion hura argi-zizta honetaz atzi barneko pozez... guk hasperenka nahi dugun betiko bizia ez al da **argiune** honen antzeko? Imanol Unzurrunzaga

Argiune bat osatu zuten hodei beltzek. Fernando Morillo

Ametsa hormen gainetik eguzki **argiune** baten antzera kulunkatu eta desagertu zen. Euriz kargatutako hodei ilunak urratu egin ziren, eta **argiune** txiki batetik eguzkia agertu zen, lautada osoa argituz. Anton Garikano

Euriz kargatutako hodei ilunak urratu egin ziren, eta **argiune** txiki batetik eguzkia agertu zen, lautada osoa argituz. Joanes Urkixo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argiune batera (3)

argiunera irten (3)

---

argiunetxo *iz* argiune txikia.

Harry izutu egin zen, albora begiratu eta Hermione ikusi zuen; bere atzeko mahaian bertan zegoen eserita, eta ezkutatzen zuen liburu-pilaren artean **argiunetxo** bat egiten ari zen. Iñaki Mendiguren

---

argiurratze *iz ipar* egunsentia.

Argiurratze bat, errebelazione bat egiazki izan zen enetzat: hoinbeste gazte, anitzak "euskaldun berriak", gai guzietaz euskaraz ari. Piarres Aintziart

Eguna eta gaua nola partekatzen duten, otoitzarena eta lanarena, gaueko otoitzak, **argiurratzekoak**, goizekoak, eguerditakoak, arratsaldekoak, bezperak, etzan aitzinekoak; Michel Oronoz

---

argixinta *iz* egunsentia.

Txoriak? Horiek engainatu? Ez bederen ordua aurreratzeak: goizean, atzoko **argixinta** berberarekin abiatu dute kantu-sinfonia ondo entsaiatua. Pello Zabala

---

argixka *(orobat **argixko**) iz adkor* argi ahula.

Eta gure gainean dir-dir egiten duen **argixka** hori bera ere ez da iraunkorra izaten, aldiz ageri eta aldiz ezkutatzen baita, suzko ezpata distiratsuaren argia balitz bezala (Has 3,24.). Xabier Kintana

Bi eraikinetako leihoen **argixkak** banaka-banaka itzali ziren eta, kafean geratzen ziren bezeroak dominoan edo karta jokoan ari ziren. Patxi Zubizarreta

Autoaren bakardadean, gaur ezagutu ditudan pertsonak eta esan ditugun gauzak errepasatzen nentorrela, kezka bat piztu zait, gasolinaz urri nabilela dioen **argixkaren** antzera. Pako Aristi

Komisarioa jada dantzalekuko atarirantz zihoan zigarro bat pizten ari, bere bizkarrean pilatzen ziren oihu ulertezinei entzungor, 125 voltioko hozkailu zaharkituaren **argixkari** itsu. Harkaitz Cano

Astigarribiako ermita barneko **argixkek** kolore hori motela zuten. Fernando Morillo

Aire orbange zeharrargiak, eguzki printzen aurreko **argixkoari** basoko zuhaitz bakoitzari bere margo eta ukittu propialak eransten uzten dio. Pello Zabala

---

argizagi **1** *iz* zeruan, begi hutsez nahiz tresnaren batez ikus daitekeen gorputz oro, eskuarki distiratsu ikusten dena. ik **astro**; **artizar**.

De caelo (Zeruari buruz) izenburua duen liburuaren lehenengo atalean dio Aristotelesek **argizagiak**, astroak direla gauza dibinoetan gehien ageri diren zerak, horien baitan baitago higidura, eta horiek arima batek biziarazten ditu. Askoren artean

Simone Weil filosofoak, munduaren edertasunaz ari zela, bereziki erranez nola erakar indarrak mendien eta itsasoaren pleguei eta zeruko **argizagiei** edertasuna emaiten dietela, hau idatzi zuen "Matematika hutsean ere, beharrezkotasunak edertasunaz distiraten du". Piarres Aintziart

Jainkoak bi **argizagi** handi egin zituen: handiena egunaren gain jartzeko eta txikiena gauaren gain jartzeko. Jose Antonio Mujika

Goizean **argizagi** hura zeruan distiratzen ikusten zuenean bazekien jendeak zer iragartzen zuen: emakumeak, ura, palmondoak eta datilak. Xabier Aranburu

Ez al dakusu izarrak eta **argizagiak** nola lurrera jausten diren? Xabier Amuriza

Argizagiak han goian, **argizagi** ezezagunak, espazio zabal mugagabean aliritzira jaurtitako **argizagi** ezezagun haiek, hainbeste amets, hainbeste gogoeta eragiten duten irudi bitxi horiek marrazten. Josu Zabaleta

Zeruari begira zegoen Tales, **argizagien** ibilbideari buruzko sekretuak han aurkitu nahian. Jon Muñoz

Ondoren Maimonek esfera exzentrikoak aipatzen ditu, Ptolomeoren sistema astronomikoan **argizagien** mugimendu irregular batzuk azaltzeko balio zutenak. Xabier Kintana

Idatzi, esate baterako: Izar dago gaua, eta dar-dar dagite urruti, urdin, **argizagiek**. Imanol Zurutuza

Eta hau guztiau argiaren eta ilunen bitartez egiten da, **argizagien** distiratik eta Lurraren inguruan egiten duten itzulitik heldurik. Xabier Kintana

2 ***argizagien mugimendu***

Ondoren Maimonek esfera exzentrikoak aipatzen ditu, Ptolomeoren sistema astronomikoan **argizagien mugimendu** irregular batzuk azaltzeko balio zutenak. Xabier Kintana

---

argizain *iz* argia zaintzen duen pertsona.

Bere osabetako bat **argizaina** izan zela Eskoziako harkaitz mutur batean. Anton Garikano

Piezen amaieran, **argizainak** soineko urdin-min bat jartzera etortzen zitzaizkion eta deiadar egiten zuten Bridewell-era eramango zutela. Juan Garzia

Mutiko gizarajo bat zegoen kaderako tuberkulosiarekin, **argizainaren** semea. Anton Garikano

---

argizaiol *(corpusean **argiazaiola** soilik) iz* hilobian edo elizan, familiak bere hilei eskaintzen dien argizari bildumena biltzen den ohola, gehienetan landua.

Ortzi ilunaren minean **argizaiola** baten ibilera jarraitu nuen, aspaldian espero nuen estralurtarren zirta zela irudikatuz. Itxaro Borda

Niri behin, Gipuzkoako Zubietan, **argizaiola** bat eman zidaten eskura. Andoni Egaña

---

argizale *izond* argiaren zalea dena.

Sens, Senlis, Reims, Le Mans, Amiens..., jatorrizko beiratilak XVII-XVIII. mendeetako kalonje ilustratuek eraitsi zituztela, adierazten zaio turistari, eta haien lekuan, barrubehea hobeto argiztatzeko, grisaila ipini zela leihoetan, paretak zuritu, etab., gustu **argizale** (ez margozale!) berriaren arabera. Joxe Azurmendi

---

argizari *(orobat **argizagi** g.er.)* **1** *iz* erleei darien gai horixka eta urtzen erraza, beren bizilekua egiteko erabiltzen dutena. ik **ezko**[1].

Urtzen ari zait bihotza, **argizaria** irudi.

Eguzki galdatan **argizariak** urtzera dagi. Anjel Lertxundi

Ziriak **argizarian** dagi bidea, iraun ustez. Anjel Lertxundi

Halako **argizarizko** edertasun zurbil bat zuen neskaren gorputz biluziak. Anjel Lertxundi

Inudeak, neskaren sendaketa lortzeko itxaropenez, Frantzisko dohatsuaren hilobira eraman zuen, **argizarizko** irudi bat berekin zuela. Askoren artean

Argizarizkoa dut bihotza Walserrek bere adiskidetzat hartu nauenetik, eta inoiz ez bezalako zentzua ikusten diot orain lo egiteari. Anjel Lertxundi

Hark gozatutako **argizagia** bezain malgua eta mela zen Salemdarren poza, baina haien bihotzak eguzki hark berak lakartu eta gogortutako buztin-zokorren antzekoak izan behar zutela otu zitzaion Norari. Anjel Lertxundi

Betiereko argiaren bila hilen **argizagian**. Berria - Gaiak

Argizaritan harrapaturiko erleak bezalaxe. Harkaitz Cano

2 (izenondoekin)

Argizari berdearen eukaliptu usaina hedatu zen sukaldean eta neu ere lanbrotu egin ninduen. Jasone Osoro

Argizari urtuaren eta intsentsuaren usaina irteten hasi zen aire girotuaren hodietatik. Anjel Lertxundi

Bere eskuak eta gorputza **argizari** urtuan ipini balitu bezalaxe, harkaitzean markaturik gelditu zen San Frantziskoren eskuen eta aurpegiaren forma. Askoren artean

Margoa ukitu behar ez den lekuetan **argizari** likidoa ipintzen duk. Anton Garikano

3 (hitz ekartuetan)

Argizari-usaina emakume-usainarekin eta nire oheko usainarekin batzen hasi zen aire isilean. Anjel Lertxundi

Argizari zatia kentzen nion bakoitzean, nire barnetik borborka zebilen garrasiak eztanda egiten zuen isilean. Jasone Osoro

Eta ezpaltxo txuri hori, Erramu egunez elizan bedeinkatutako erramu trunkotxo edo adar lodixka batetik ateratzen genuen, eta burni gorituz erretako gurutzetxoaren erdian, kandela bedeinkatu batekin **argizari**-ttantta batzuk tentuz ipini. Pello Zabala

Makila ontzian lagata, gogortua zegoen **argizari** pusketaren ertz bati heldu eta zast!, azalari hain itsatsia zegoen zatia kendu zuen. Jasone Osoro

4 *argizari galduzko galdaketa* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Argizari galduzko galdaketaren bidez eginiko eskultura anizgarrien lehiaketa antolatu du Eibarko Alfa Arte eskultura lantegiak. ETC-prentsa

Puntzoi konplexu horiek, batzuetan alde bat positiboan eta beste bat negatiboan dutela, brontzean egiten dira, **argizari galduzko galdaketa** -teknikaren bidez. ETC-entziklopedia

5 *argizari museo*

Argizari Museoko irudiak iruditzen zitzaizkion orduan ikasleak. Imanol Zurutuza

6 *belarriko argizari* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Zerumena edo **belarriko argizaria** gizakion eta beste ugaztunen entzunbideak jariaturiko erle-argizariaren moduko isurkaria da. ETC-entziklopedia

Sistema ona da **belarriko argizaria** kentzeko, bizitzak horretara eramaten baikaitu: topikoen bazka izatera, topikoak bazkatzera. ETC-prentsa

Animalien barrua hustearen bidez obulutegiak eta bestelako organoak aztertzen dizkiete baleei, urdailen edukia eta **belarriko argizaria** besteak beste. ETC-prentsa

Horien jariakina seboguruinen jariakinarekin eta epiteliotik askatzen diren zelulekin nahasten da, **belarriko argizaria** sortuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, ile-folikulu eta gantz-guruinak (**belarriko argizaria** jariaten dutenak) ditu. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argizari bat (4); **argizari urtuaren** (4); **argizari usaina** (4)
argizaria bezain zurbil (3); **argizaria ematen** (3); **zoruari argizaria** (3)
argizariaren egunak (3)
argizarizko irudi (3)

---

argizarigile *izond* argizaria egiten duena.

Erdi Aroan, inolako araudirik ez izatean, espezieroak, botikeroak, herbolarioak, perfumegileak, **argizarigileak** eta konfiteroak elkarrekin nahaste samar ageri dira, harako Xenpelarren bertso aldrebes sonatu hartan bezala. Patziku Perurena

---

argizaritu, argizari(tu), argizaritzen du *ad* argizaria eman.

-Gerroarren lurraldean, erregea hil dakienean, gorpu osoa **argizaritu**, sabela ireki garbitu eta iraurbelar xehetuz eta lurringaiz gainera apio eta aneta haziz betea duelarik, berriz josi egiten diote, eta bere hilobian ipini, ondoan, alde banatan lantzak sartu eta gainetik egurrez estaliz; eta alboan ohaidetako bat ehorzten dute ito ondoren, baita koparia, [...]. Patziku Perurena

Etxe ongi **argizaritua**, ohol ongi leundua, oxigeno neurri onez hornitua bihurtzen da eguna. Josu Zabaleta

---

argizariztatu, argizarizta(tu), argizariztatzen du *ad* argizaritu.

Gela ertain bat zen, dotorea, zola **argizariztatu** eta dirdaitsuarekikoa. Patxi Zubizarreta

Gizon sendoa zen eta bekainak punta **argizariztatuekiko** bibote beltza bezain sarriak zeuzkan. Lopez de Arana

Gabrielen begiak, zoru **argizariztatuak** argiontzi astunaren azpian egiten zuen distirak erremindurik, pianoaren gaineko hormara joan ziren. Irene Aldasoro

---

argizariztu *iz* du *ad* argizaritu.

Zoruarekikoak egin zituenean, oheburua-eta **argizarizten** hasi zen. Anjel Lertxundi

Batelera bati Pasaian Manuela la Catalana deitzen diote: sonbrailu txiki **argizariztu** -hulezko- bat janzten du, arrosa handi batekin apaindua. Koldo Izagirre

---

argizeitu *iz* ilargi zuria, ilargiaren argia. ik **ilargite**.

Argizeituaren menpeko gunea salbu, ortzia lainotsu zegoen. Itxaro Borda

Biritxi astrologikoak ginen gau mineko solaskidearen aurpegiaz ontsa gogoratzen nintzen: **argizeituak** amultsutasuna oparitzen zion eta bihotza arintzearren, prest nintzen naski, bertan debalde bezain arriskurik gabeko, dena ere on, transfer sentimental baten bideratzeko. Itxaro Borda

---

argizpi ik **argi 4**.

---

argiztadura *iz* argiztatzea.

Egun batez, ikasleen aitzinean, Nietzschen testu batekin borroka ari nintzela, hatsantua bezala, besteei esplikatu nahiz nihaurek nolazpait ulertua, ustez ulertua, orduan beraz, gisa bateko **argiztadura** batek beretu ninduen eta senditu nuen, fisikoki, alegrantzia bat. Piarres Aintziart

Eguberriko girlandak eta **argiztadurak** desegiten hasiak dira gure karriketan, ez da gehiago eztabadarik mende berria 2000 ala 2001 ean hasi den; Herria

---

argiztagarri *izond* argiztatzen duena.

Askatasuna munduaren **argiztagarri** ... Lopez de Arana

---

argiztapen *(ETCn **2.587** agerraldi)* **1** *iz* argiztatzea; toki bat argitzen duten argien multzoa. ik **iluminazio**.

Ohar honek jarraian izango du lehen-lehenik bere **argiztapena**. Ibon Uribarri

Argiztapena eta eremu eszenikoa: Oscar Grijalba. Berria - Kultura

Gainazal bat jotzen duen argi kopurua ere neur daiteke: **argiztapena**, hain zuzen; argitzen den gainazal-unitate bakoitzeko argi-fluxu gisa definitzen da, eta lux-etan neurtzen da (1 lux: 1 lm-k 1 ml-ko azalera bat jotzen duenean eragiten duen **argiztapena**). Josu Zabaleta

Belaunaldi batzuen buruan, **argiztapena** eta perspektiba, espresioa eta sakontasuna asmatzearen ondorioz, horra margolaritzaren funtzioa bera aldatu. Juan Garzia

Nahiz eta zuhaitz gazte haiek kanabera baino garaiagoak ez izan, honela mintzatu ziren haietaz egunkarietan, kaleko **argiztapena** deskribatzen ari zirela: Oro har, film honen **argiztapena** ez da txarra, Guatemalako zintarena baino hobea nolanahi ere; koloreak ere bikain daude, harrituta nago. Jose Morales

Argiztapenak ere merezi du bere komentarioa, giro tenebrista sorten duelako eta argi kanoiaren bidez argiztatzen baitituzte aktoreak, horrek dakartzan zehaztasun faltarekin. Berria - Kultura

Puxika urdin eta granate kolorekoak arku bat egiten, **argiztapen** bikaina, megafonia ona. Berria - Kirola

Laranja koloreko ortzi zati hori azpiko **argiztapen** desegokiaren isla besterik ez da. Berria - Gaiak

Gainazal bat jotzen duen argi kopurua ere neur daiteke: **argiztapena**, hain zuzen; argitzen den gainazal-unitate bakoitzeko argi-fluxu gisa definitzen da, eta lux-etan neurtzen da (1 lux: 1 lm-k 1 ml-ko azalera bat jotzen duenean eragiten duen **argiztapena**). Josu Zabaleta

Grijalbak sortutako **argiztapenak** eta eremu eszeniko bereziak beste dimentsio bat eman diote dantzari bien lanari. Berria - Kultura

Argiztapenaren uhin-luzeraren arabera argi-ilunak aldatzen ziren mundu batean. Xabier Olarra

Filmegintzan berean, azken aldi honetan egin diren lanak ez dira horren interesgarriak; fotogenia lausotu, arruntu egin da gehienbat, formula estereotipatuetan finkaturik, eta pelikula eta **argiztapenean** egin diren aurreramendu handiek, eta kameralari eta zuzendari askoren jakintza harrigarriak ez dute balio izan askotan originaltasun askorik gabeko efektuak sortzeko baizik. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Halaxe da, badago aldea, baina harritzekorik ezer ez, niretzat: **argiztapen**-efektu bat, besterik gabe. Joxe Austin Arrieta

Daguerre-ren dioraman denboran zehar gertatzen ziren aldakuntzak, adibidez, dekorazio margotu handi batean **argiztapen**-aldaketen bidez lortuak, ez ziren handiak, film dokumental xumeenarekin alderatzen badira. Josu Zabaleta

Aldaera hauetan garrantzizkoenetako bat **argiztapen**-gradientea da, gainazal batek bere kurbaturaren eraginez izaten duen **argiztapen**-aldaera progresiboa, gauzak objektu trinko bezala agerrarazten dituzten berezko itzalak izatearekin lotura duena. Josu Zabaleta

3 ***argiztapen publiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **34** agerraldi)*

Kalea, herrian dagoenik eta erabiliena duk, nabarmenki, baina nik erraz irudika zezakeat **argiztapen publikoaren** argi margularen pean erakusten duen itxura negutiarra. ETC-literatura, saiakera

1890/2008 eraginkortasun energetikoari buruzko errege dekretuak arautzen du, besteak beste, **argiztapen publikoak** zer-nolakoa izan behar duen. ETC-prentsa

2008an lege bat atera zuen Espainiak, eta lege horrek hainbat neurri betearazten dizkie udalei, **argiztapen publikoari** dagokionez. ETC-prentsa

Otxoak jakinarazi duenez, orain dela urte batzuk herriko **argiztapen publikoaren** zati bat aldatu zuten gutxiago kutsatzeko. ETC-prentsa

Aretxabaletako Udalak, berriz, bi arlotan jarduten du: batetik, **argiztapen publikoa** eraldatu du, argiak eta lanparak aldatuta. ETC-prentsa

Bide horretan, atzo **argiztapen publikoari** buruzko datuak ere bildu zituzten, plazan bertan, furgoneta batekin. ETC-prentsa

Leioan (Bizkaia) berriki esleitu dute hiriko **argiztapen publikoa** LED teknologiara pasatzea. ETC-prentsa

Modernotasuna erakutsi nahirik, 1882an **argiztapen publiko** elektrikoa jarri zuen lehenengoetariko hiria izan zen Donostia. ETC-zientzia, zuzenbidea

2000. urtean, Glasgow hiriak, **argiztapen publiko** urdina ezarri zuen zenbait auzotan, eta, ondoren, eremu horietan delinkuentzia murrizketa egon zen. ETC-entziklopedia

4 ***gas argiztapen*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Gas-argiztapena hidrogenoa, metanoa, propanoa, butanoa, azetilenoa edo etilenoa bezalako erregai gaseoso batetik argiztapena lortzeko erabiltzen den teknologia da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argiztapenaren bidez** (3)

---

argiztatu, argizta(tu), argiztatzen **1** du *ad* argiz hornitu, argitasuna eman.

Kanpoan, tximista batek zerua **argiztatu** zuen. Fernando Morillo

Argiak piztu zituenean, hauek etxearen aurrealdea **argiztatu** zuten, eta argitasuna autoaren barrualdera sartu zen gidariaren aurpegia **argiztatuz**. Aitor Arana

Linterna eskuratuta irteera aldera jiratu, eta gelako atea **argiztatu** zuenean ikusi zuen Mentxu, ate ertzean arduragabe itxuran kokatuta. Josu Landa

Neskak gas-lanparez **argiztatutako** hall batera eraman zituen, non janari-usaina nagusi baitzen. Lopez de Arana

Luigik tolestuta eskaini zion besoa, Mentxuk bertatik oratuta korridore ilunetan zehar aurrera egin zezaten, milaka watteko fokuek **argiztatutako** pasarela batean legez. Josu Landa

Ilargiaren izpiek **argiztaturik**, haren begien aurrean barruti harresitu biribil bat ageri zen, bi katedral, hiru jauregi eta armategi bat barnean hartzen zituena. Karlos Zabala

Liburutegiak, berriz, hortxe iraungo duela: **argiztaturik**, bakardade huts, infinitua, guztiz ere geldia, liburu preziatuz armatua, alferrikako, ustelgaitz, sekretua. Juan Garzia

2 (da aditz gisa)

Zigarretaren bat eskatu zidan eta lehen bezalaxe orain ere jakin nahi berak, ea zer hausnartzen jarduna nintzen hain luzaroan, eta nik orduan beste zerbait esan beharko, bada: eman nion sua, **argiztatu** zitzaion aurpegi gaztea, eta galdetu nion ea nirekin ezkondu nahi al zuen. Joxe Austin Arrieta

3 (adizlagunekin)

Etxetik hurbil zegoen neoizko argiz bapo hornitutako bebarru handi bat zen, hezea eta ez oso ondo **argiztatua**. Iban Zaldua

Gobernadorearen etxea, ordea, oso ondo **argiztaturik** zegoen, dantzaldi handi baterako bezala. Jose Morales

Korridorea hutsik eta gaizki **argiztaturik** zegoen. Lopez de Arana

Topaketaren lehenengo ondorioa, nola ez, tabernaren txikizioa izan zen; bigarrena, udaltzain eta gau-jagole andana bat etortzea, tabernariak deituta barbaro haien arteko borroka gerarazteko; hirugarrena, Cortoren eta errusiarraren ihesa, gaizki **argiztatutako** kaleetan zehar. Iban Zaldua

Krimen-bolada honetan uste dut eraikin osoa hobeto **argiztaturik** eduki behar zenuketela. Lopez de Arana

Kotxea eguzkiak ederki **argiztatutako** plaza distiratsu batean sartu zen. Lopez de Arana

Egun berriaren egunsentian, lehenengo argiak artez **argiztatuko** du barru aldeko galeria, Azpimunduko ateak zabalduz. Joanes Urkixo

Soldaduz inguratutako nasa jendegabean kondenatuak motel **argiztaturiko** bagoietarantz abiatu zirenean, Vernerri Sergei Golovin egokitu zitzaion aldamenean. Jose Morales

Hortxe dugu Kremlin ingurua, zoragarri **argiztaturik**. Edorta Jimenez

4 (era burutua izenondo gisa)

Hain dira distiratsu argi horiek gizaki **argiztatu** baten barruan! Joan Mari Lekuona

Lanpara urrun baten edo leiho **argiztatu** baten argia nuen behean. Irene Aldasoro

Bulebarreko leiho **argiztatuak** ikusten zituen berriz ere. Karlos Zabala

Badirudi ganoraz zaindu dutela margolana, 12-18 gradu inguruko gela **argiztatu** batean, hegoaldera ematen duten leihoetatik urruti. Javi Cillero

Izena markatuta, trastearen memoriak zenbaki bat egotzi zuen pantaila **argiztatu** estura. Nire mozkorrean eta begiak lausoturik nituela, ez nuen biribilgune **argiztatua** ikusi. Aingeru Epaltza

Ostatuko egutera **argiztatuan** ginen jadanik ahoa hertsi zenuenean. Itxaro Borda

Ostatuko egutera **argiztatuan** ginen jadanik ahoa hertsi zenuenean. Itxaro Borda

Noizbehinka kabala errebelatu bat gurutzatzen nuen, gautxori baten auhena hautematen eta bat-batean herri **argiztatuaren** muinera heltzen nintzen, bideak ez zirenez are luzeagoak moldatzen ahal galdezka. Itxaro Borda

Argi berdexkak eta itzalak tartekatzen ziren, leiho **argiztatuen** aurretik igarotzean. Lopez de Arana

Perla **argiztatuen** antzera argi egiten zuten lanparek beren poste luzeen puntatik beheko ehundura bizira. Irene Aldasoro

Euritik harago, Ellenek hondartzan zehar eta ontziraleku **argiztatuen** artean zabaltzen ziren uhinen aldizkako zalaparta entzun zezakeen. Lopez de Arana

Herri mortu doi-doi **argiztatu** horretan ez zen inon ere Ximurraren ibilgailu handiaren arrastorik. Aingeru Epaltza

Zuzen-zuzenean sartuko da atean zehar usain atsegineko logela leunki **argiztatura**, eta arropak erantziko ditu. Oskar Arana

Ataritik hurbilen zegoen leiho **argiztatura** zuzendu zituen gizonak, beti euritan, bere urratsak. Aitor Arana

Kafetegiak izan dira orain arte nire babesleku bakarrak, jendez beteak eta ongi **argiztatuak** egoten direlako. Monika Etxebarria

Haiek baino gorago, beste leiho batzuk zeuden, luzeagoak eta **argiztatuagoak** : Eguzki Beltzaren aretokoak zirela ohartu nintzen. Alberto Ladron Arana

5 ***eskuizkribu argiztatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Eskuizkribu argiztatua testuari elementu apaingarriak gehitu zaizkion eskuizkribu bat da, adibidez, hizki handi irudidunak, izkinak eta miniaturak. Definizio zehatz edo zorrotzenaren arabera, **eskuizkribu argiztatua** urre edo zilarrez bakarrik apaindutakoa litzateke. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argiztatua zegoen** (4); **ondo argiztatua** (3)
> **argiztaturik zegoen** (4)
> **argiztatzen zuen** (8)

---

argiztatzaile *izond* zinema, teatro eta kideko lanetan argiztatze lana egiten duena.

Laburmetraia esperimentalak egin izan ditu, muntaketa, aktore, **argiztatzaile** , zuzendari eta gidoilari lanak bere gain hartuz. Harkaitz Cano

Akats larriak daude hastapeneko prestakuntza espezifiko, profesional eta jarraituaren eskaintzan eta arte eszenikoetako lanbide multzoan (sortzaileak, interpreteak, teknikariak, jantzi-diseinugileak, **argiztatzaileak** , eszenografoakÉ) eta dantzan. Berria - Kultura

Gazteak, literatura eta euskara uztartzeko asmoarekin gauzatu zen, eta proiektuarekin haste-hastetik bat egin zuten Mikel Urdangarin kantariak, Koldo Uriarte piano jotzaileak, Unax Ugalde aktoreak eta Javi Ulla **argiztatzaileak** . Patxi Zubizarreta

Adinak gazte haien taldeko egiten bazuen ere, haien arteko jantziena baino askoz ere jantziagoa zen, eta halako jarrera heldu batez (bere irizpideak aurrera ateraz, alegia) hitz egiten zuen kamera edo **argiztatzaile** gazteekin. Anjel Lertxundi

---

argiztatze *iz* argiz hornitzea, argitasuna ematea.

Dekoratu dotoreak eta **argiztatze** egokia prestatu zituen. Berria - Kultura

Decker eszena zuzendariak aldapa gogorrean jarri zituen herri arrantzalearen pertsonaiak, gora eta behera, harantz-honantz biraka, bizitza latza den modukoa, dekoraturik gabe, apenas atrezzo-rik, **argiztatze** gris-urdinarekin. Berria - Kultura

Dekoratu gabe eta **argiztatze** minimoekin dantza hutsaren errebindikazioa da, sormenaren prozesuari eta egungo dantza modernoaren aldarrikapena. Berria - Kultura

Telefonoa oihanaren erdi-erdian; **argiztatze** elektrikoa, XIX. mende amaieraz geroztik. Jon Muñoz

Sistema horretan, ikusmen-zelulen **argiztatze** biziak auzoko zelulen sentikortasun-galera eragiten du, eta, beraz, eremu argitsuen eta ilunen arteko kontrastea indartzen. Irene Aldasoro

· Bizkar-muinak eta gainerako nerbioek egiten duten lana, automobil baten edo makina elektroniko konplexu baten **argiztatze** -sistemak egiten duenaren antzekoa da; garuna bera, berriz, kontrolaz, gidaritzaz, egonkortasunaz eta beste koordinazio-lan batzuez arduratzen da. Irene Aldasoro

Argiztatze -desberdintasunak: fenomeno-zerrenda luzea sartzen da atal honetan: argitasunaren edo koloreen aldakuntza gutxi-asko jarraituak, berezko itzalak edo itzal eraginak, "perspektiba" atmosferikoa (oso urruti dauden gauzak, bitartean atmosfera lodiagoa, batzuetan gandutsuagoa eta urdinkaragoa, dagoelako, lausoago ikusarazten dituena). Josu Zabaleta

---

argiztuta *adlag* argitasuna duela.

Ez ote da zerbait txarra gertatzen ariko Media Lunan? Hiru urtetik gora da **argiztuta** dagoela leiho hori, gaurik gau. Juan Garzia

---

argizulo **1** *iz* argia sartzeko zulo kristalduna.

Lehenago esan dudanaren ildotik, gogortasuna bera gatazkaren irtenbidea izan daiteke, zeren asko eta benetan sufritzen duenak soluzio bat aurkitu nahi izaten baitu, ate bat, **argizulo** bat. Bernardo Atxaga

Sabaian bi **argizulo** zeuden, eta bonbillen argia japoniar paperean zehar hedatzen zen. Ibon Uribarri

Espaloiaren arrasean, zenbait **argizulo** zeuden, burdin sarez babestuak, eta Claude haien gainean makurtu eta sotoen hondoetarantz begiratu zuen, non gas argi susmagarriak erretzen ari baitziren han-hemenka. Karlos Zabala

Aurpegiak eurrez barandetan zehar; aurpegiak itsasontziko **argizulo** guztietan. Lopez de Arana

Kosta ahala kosta **argizulo** bat ireki behar diat ziega honetan. Fernando Rey

Etxeen artean nabil aldaroka, banaiz, existitzen naiz, pentsatzen dut, beraz aldaroka nabil, banaiz, existentzia erortzea da, eroria, eroriko al da, ez da eroriko, behatza atzaparka dago **argizuloan** , existentzia akats bat da. Monika Etxebarria

Saget andereñoak, arrats batez bere **argizulotik** begira zegoela, Quenuren itzala ezagutu zuen bilera gelak Pirouette kale aldera zuen leiho handiko kristal zeharrargietan. Karlos Zabala

Montorgueil eta Montmartre kaleetan ere baziren janari denda eder-ederrak, **argizuloetatik** usain gozoa hedatzen zuten jatetxeak, hegaztiz eta ehizaz josiriko erakusleiho bikainak. Karlos Zabala

Ukuiluko **argizulotik** burua aterata, gazteluko otsein bat barrezka ari zaio. Itziar Otegi

2 irud/hed

Bera gatazkaren irtenbidea izan daiteke, zeren asko eta benetan sufritzen duenak soluzio bat aurkitu nahi izaten baitu, ate bat, **argizulo** bat. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argizulo bat** (3); **argizulo baten** (3)

---

argoi[1] *izond/izlag* harroa, burgoia.

Garaia eta **argoia** zen, eta begi grisak zituen. Agustin Otsoa

Txalupa haiek, bestela Frantziako itsasertzeko Saint Nazaire muturreraino itsaspeetan arakatuz airos joan izaten ziren txalupa **argoiak** . Joanikok, **argoi** , amorrua bekokian ageri zuela zeutson, alboan, apaldurik, Martin anaia eta Igeldokoa zituelarik. Edorta Jimenez

Margolariaren ohiko erretratu-estiloan atondua, gizon handi biak elkarren alboan eta aurrera begira dagoz, **argoi** , eguzkiak aurpegian behera isurtzen dien koloretasunak barregura-aire bat ezartzen diela. Edorta Jimenez

---

argoi[2] ik **argon**.

---

argolidar *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *izlag/iz* Argolidakoa, Argolidari dagokiona; Argolidako biztanlea.

K.a. XII. mendean **argolidarrek** sortu zuten. Hitita Hititek hartu zuten, eta itsasoko herriek ere menderatu zuten. ETC-entziklopedia

---

argon *(corpusean **argoi** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian **argon** agertzen da)* *iz* gas noblea, inertea, kolorerik eta usainik ez duena.

Gas noble esaten zaie, orobat, eta eztabaidatzekoa litzateke ea benetan noble guztiak diren geldo eta geldo guztiak diren noble; gas arraro ere esaten zaie, azkenik, nahiz haietako bat, **argoi** delakoa, "Eragingabea", ehuneko baten proportzio ez batere eskasean sartzen den airearen osaketan. Juan Garzia

---

argonauta *iz* Urrezko Ardi larruaz jabetzeko Jasoni lagundu ziotenen arteko greziar heroia.

Jainko apetatsuen aldarteen menera, itsasoan galdutako **argonauta** bezain gaitzes. Aingeru Epaltza

Zehaztasunak ematen jarraitu zuen jainkosak: aurrerago bi bide topatuko nituela: alde batean bi haitz ikaragarriak, Haitz Herratiak; haien kontra uhin ikaragarriak lehertzen dira, eta inor ez da onik irten handik, behiala Jason eta **argonautak** izan ezik, Hera jainkosaren laguntza izan baitzuten. Juan Kruz Igerabide

Miniares izena eman zitzaion Orkomeneri [...] bai eta **argonautei** ere. Iñaki Iñurrieta

Jason gizajoa Argos ontziaren itzalean lo egitera joan ohi zen **argonauten** epikak eta urrezko ardi-larruaren distirak ezabatu zirenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Meleagro **argonautetako** bat izan zen. Martin Anso

Sinplegade adamantino horien artetik arrakastaz igarotzearen saria, ordu arte han itsastatzen ahalegindutako itsasontzi guztiak apurtu zituztelarik haien barailezur mugikorrek, **argonauten** kondairazko esperientzia izan liteke. Iñaki Mendiguren

Argonauten musika eta margo ekitaldia. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argonauta untziaren inguruan** (3)

---

argose *iz* arraren gosea.

Koadrila osoa zalditzarra hartuta zebilen eta mutil-laguna KO zeukala aprobetxatuta zamalkatu ninduen **argoseak**. Urtzi Urrutikoeetxea

Bestela animalien emeek ere, hegaztiek eta abereek, basokoek zein etxekoek, eta behorrek ere ezingo lukete arrengana makurtu, euren izaera ere **argose** jorian sutuko ez balitz eta gainekoaren desioari pozik jarraituko ez balio. Xabier Amuriza

---

argostar *izond/iz* Argosekoa, Argosi dagokiona; Argoseko biztanlea.

Eta alde bietako asko erori ondoren, lazedemondarrak irten ziren garaile; ordudanik **argostarrek**, lehen ilea luze zeramatelarik, kaskoak moztuz, madarikaziopeko lege hau ezarri zuten: [...]. Patziku Perurena

Thyrea berreskuratu arte **argostar** inork ez zezala ilea luzatzen utzi. Patziku Perurena

---

argot *iz* hizkuntza mota berezia, lanbide edo profesio bati dagokiona.

Mahonyk erruz erabiltzen zuen **argota**, eta Aita Butlerri, berriz, gas-gargailu esaten zion. Irene Aldasoro

Ikasleen eta lanbide bereko hiztunen artean ere hizkera bereziak sortzen dira, **argotak** deitzen direnak. Koldo Zuazo

Argotera jotzen dugu, ezkutuko hizkerara, desioak azaltzeko, zapalkuntzaren gainetik. Luis Elberdin

Argot apur bat ere ikasi nuen, eta frantsesez gero eta gehiago irakurtzen bainuen, denbora laburrean asko hobetu nuen nire ahozko nahiz idatzizko jarduna. Anjel Lertxundi

Alderantzizko bidea ere egiten dute hitzek sarritan, hau da, jatorriz lagunartekoa eta **argotekoa** dena hizkera jasora iristen da. Koldo Zuazo

Argotean "jostailuzko numeroak" esaten diegun horiek baino ez ditu Brunok jada egiten. Harkaitz Cano

Zeren noiz edo noiz zirkulazioan ere jarri beharko da euskal **argot** urbano bat. Iñigo Aranbarri

Noizean behin psikoanalisten **argoteko** esaldiren batez baliatzen naiz, ezinbestekoa da, nik uste, nire belaunaldikoentzat, ez dakit. Karlos Zabala

Ez zituen atsegin "irakasle", "zuzendari", "liburu" hitzen **argotezko** ordainak. Joseba Urteaga

---

argudiabide *iz* argudiatzeko bidea.

Argudiabidea, izan ere, baliagotsuago baita argudioak modu original eta harrigarrian formulatzen direnean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Darabilten **argudiabideetan** bada silogismo bat, ametsen eskolaurrean ere onartuko ez litzatekeena. Joxerra Garzia

Aristotelesek, Perelmanek eta beste autore batzuek xehe-xehe aztertu dituzte argudio eta **argudiabide** motak, haien gogo-antolakuntza eta haien bideragarritasuna. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

argudiaketa **1** *iz* argudiatzea, eztabaida batean nork bere aldeko argudioak azaltzea.

Argudiaketaren haria galtzen ari zara: arazo hori arinkiago konpon daiteke. Askoren artean

"Laguntza eman behar diegu pateratan datozenei" eta "patera hartuz datozen hoiei eman diezaiegun babes" **argudiaketaren** aldetik pare-parekoak dira. Andoni Egaña

Esponja bada, bateko eta besteko pasadizo, hitz eta **argudiaketekin** beteko du almazena eta gero, dagokionean, han izango ditu mihiaren punttan. Andoni Egaña

Bestalde, zehaztasun faltaren sortzaile izan diren hitzak zuzenduko dira, eta horrela moztuko da **argudiaketan** jarduteko baimen kaltegarria, eztabaida antzu askoren iturria. Juan Martin Elexpuru

Argudiaketa hau hobeto bermatzeko, orokorki Ortega-ren positibismo eta materialismoaren kritikaz, eta zientzia eta filosofiaren elkar osagarritasun ezinbestekoaz, luzatu egin beharko ginateke. Joxe Azurmendi

Goirizelaiaren ustez, auzitegi horrek "arazo bat du, zaila baita Espainiako Auzitegi Gorenaren **argudiaketari** janzkera juridikoa ematea. Berria - Euskal Herria

2 (izenondoekin)

Horregatik zientzia inportanteena demokrazian erretorika zen, **argudiaketa** publikoa. Joxe Azurmendi

Hauek, entzule ugaritasunak eraginda, indarra hartzen dute, beren berotasun ilun eta misteriotsuagatik gehiago, **argudiaketa** argi eta lasaiagatik baino, azken honek ez baitu sekula eraginik izan ohi jende multzo handiengan. Juan Martin Elexpuru

Sendoa eta adoretsua absolbitu egingo dute, ahula eta lotsatia kondenatu, **argudiaketa** zehatz honen harian: Nik, epaileak, delitu jakin baten errudun jo behar zintuztedan; zuk, adoretsuak, oinazea jasaten jakin duzu, horregatik absolbitu egiten zaitut; zuk, ahulak, amore eman duzu, horregatik kondenatu egiten zaitut. Juan Martin Elexpuru

Ohore hitz hau **argudiaketa** luze eta distiratsuei bide eman dien horietakoa da. Juan Martin Elexpuru

Besterik da **argudiaketa** sakonak eskatzen dizkizutenean. Andoni Egaña

Horregatik ikusten dugu hainbat aldiz aldatzen dela hiritar baten zoria auzitegiz auzitegi dabilenean, eta txiroen bizitzak **argudiaketa** faltsuen eta epaile baten momentuko umorearen biktima direla. Juan Martin Elexpuru

Isildu egin zen, eta eskertu egin zenion, ez zenuen areago jarraitu gura **argudiaketa** absurdu baten. Koldo Izagirre

3 (hitz elkartuetan)

Argudiaketa jarduera da gurea nagusiki, nahiz eta argudioak edertzen saiatzen garen. Andoni Egaña

Ze metafora darabilzki bertsolariak, ze **argudiaketa**-modu, ze komunikazio estrategia... baina badira ikuspegi gehiago. Andoni Egaña

---

argudiamolde *iz* argudiatzeko modua.

Alegia, 1897 aurretik Unamuno positibista/zientista izan da gehienbat bere **argudiamoldeetan**. Joxe Azurmendi

---

argudiatu *(ETCn **25.195** agerraldi)*, argudia(tu), argudiatzen du *ad* eztabaida edo kideko batean nork bere aldeko argudioak azaldu.

Izan ere, bere nagusiak erruki barik bidali zuen, lanpostu hartarako pertsona erasokorragoa behar zela **argudiatuz**. Jon Arretxe

Hobe zuen -**argudiatu** zuen Imanolek-, den-dena sentimenduaren alde egin izan balu. Bernardo Atxaga

Bai argitaratzaileak bai inprimatzaileak uko egiten zioten liburua bere horretan argitaratzeari, hitz zatarrak eta aipu desegokiak zeudela eta auzitara eraman zitzaketela **argudiaturik**. Irene Aldasoro

Frantziako telebistako aurkezle Roger Gicquel-ek honela **argudiatu** du: Albisteen hautaketa gertaerok duten osagai dramatikoa eta jendearengana iristeko daukaten inpaktu-ahalmenaren arabera egiten dugu. Txema Ramirez de la Piscina

Orobat **argudia** daiteke, ohiko neurriak direla-eta, industria-jarduerak beste era batera banatzeko borrokan dagoen diferentzia nagusiak ez dituela Hegoa eta Iparra kontrajartzen, Asia eta Mendebaldea baizik. Koro Navarro

"Hau gazteen festa da, ez zaharrena", **argudiatu** dute neska-mutilek tinko. Xabier Mendiguren Elizegi

Era berean **argudiatu** zuen alabek onar zezaketela amarik gabe hazi eta bizitzea, baina aitarik gabe nekez, eta, Alexisen begietan bereak ipiniz, gaineratu zuen aita zela etxeko sostengu eta oinarri, etxeko zutabe eta euskarri. Felipe Juaristi

Gehienetan holatsu **argudiatu** ohi da. Joxe Azurmendi

Gertakari "arruntei" zegokiena ere gainetik kendu nahi izan nuen, Eskalatzailearekin horrela adosturik neukala **argudiatuta**. Aingeru Epaltza

Oskarrek ondo baino hobeto azaldu zion Ivani zeintzuk ziren fabrika zaharra zutik gordetzearen alde Elkarteak **argudiatzen** zituen arrazoiak, hala arkitektonikoak nola historikoak; adibidez, bertan piztu zela 1892 ko greba orokorra, Poloniako lehenengoa. Iban Zaldua

Galdera horiei (eta antzekoei) erantzun egokia emateko asmotan, teoria etiko arau-emaile desberdinen printzipio nagusiak jasoko dira lehenik, eta horietako bakoitzak darabilen **argudiatze** prototipikoa kasu praktiko batekin testatuko da. Askoren artean

Filosofiako teoriek laguntzen dute, esate baterako, argumentuak eraikitzen, gure nortasuna finkatzen, gure zibilizazioa zertan oinarritzen den jakiten, kritika **argudiatzen**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hori da batzuek **argudiatzen** dutena. Pello Salaburu

Elkar bizitzako zazpi hilabeteren buruan abandonatu ninduen, ez ninduela gehiago desiratzen **argudiatuz**. Itxaro Borda

Hura bekatua zela, eta, gainera, damak bere zerbitzuan zituen bitxigileek arrosario hori baino askoz ederragoa egin zezaketela **argudiatu** zuen. Martin Anso

Giroa berotzen ari zela ikusita, eta Hernandezi behin eta berriro tabernatik ateratzeko eskatu ondoren, azkenean, tabernako nagusiak kanpora bidali zuen, nahi dituen bezeroak soilik onartzeko duen eskubidea **argudiatuz**. Iñigo Aranbarri

Hori dena, ohikoa delako ez dago ondo -**argudiatzen** dugu-, ohitura barbaroa da, giza sakrifizioen ohitura mexikarra edo Inkisizio kristaua barbaroa zen bezala, horren aurka joan beharra dago! ("Arrazoiaren izenean", gehitzen du norbaitek. Joxe Azurmendi

Ezin izan diot ezer zentzuzkorik **argudiatu**, baina bai adierazi diot ahal izan dudan irmotasun sendoenaz laster jarriko ditudala liburuak eskueran, lehen zeuden-zeudeneantxe. Karlos Linazasoro

Hilabete ingurura etorri zen Tribunal Militarreko epailea, Eymar koronela, eta gure adierazpenak aldatu genituen, aurreko deklarazioak torturapean egin genituela **argudiatuz**. Jokin Urain

Eta hementxe jazotzen dira espekulazioaren ondoriozko sarraski larrienak: "alferrikako" elikagaiak, kostua jaitsaraziko luketenak, etc, desagerrarazten dira, prezioak ("lanpostuak", **argudiatuko** luke filantropo arribistak) atxikitzea agintzen baitu monopolio eta oligopolio eskergen aginduzko eskaera/eskaintza legeak. Edorta Agirre

Platonek **argudiatzen** zuen lehenagoko izate maila batean (Atenas sortu aurrean) egia betierekoa begiztatu zuten arimak filosofo bihurtzen zirenen gorputzetan sartzen zirela. Xabier Olarra

-Zaude isilik! Zein eskubide **argudiatu** nahi duzu orain? Omochi jauna oso haserre dago zure kontra. Joxan Elosegi

Lehen ministro jaunaren heriotzaz damurik ez baduzu, uste dut onena dela zu burutik zaudela **argudiatzea**. Koldo Izagirre

Egia esan, gizaki asko zehaztapenaren beldur bizi bada ere - gauzen definizioak euren izaeraren murriztea dakarrela **argudiatzen** duen ideiaren sinestun -, gizonarentzako izen bat edukitzeak kontrakoa esan nahi zuen, zabaltzea, hedatzea. Aritz Gorrotxategi

Honela **argudiatzen** du: Egiak betiko badirau eta ariman badago, arima ezin da hil. Imanol Unzurrunzaga

Hain luze **argudiatu** zuen, hain parabola eta esaera zorrotzak aipatu zituen, non Taibelek azkenean, bere larritasun ikaragarri hartan, irribarre egin behar izan baitzuen. Koro Navarro

Eta babestu egiten zuten botere hori, ez **argudiatuz** baizik gaizkileei zigorra ezarriz eta zintzoak babestuz. Esteban Antxustegi

Idoiak poteak itzultzeko eskatu dio, baina Pilik ez dizkio eman nahi, ezertarako balio ez dutela **argudiatuz**. Eider Rodriguez

Mundua gizaki arruntarentzat zela **argudiatuko** zuen; artea apaingarri bat besterik ez dela, giza bizitzaren gailurrean ezarria; ez dela bizitzaren adierazpen. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**
>
> **argudiatu du** (150); **argudiatu duenez** (18); **argudiatu dute** (43); **argudiatu dutenez** (9); **argudiatu genuen** (5); **argudiatu izan du** (6); **argudiatu nuen** (6); **argudiatu zituen** (8); **argudiatu zuen** (296); **argudiatu zuen defentsak** (6); **argudiatu zuenez** (22); **argudiatu zuten** (54); **argudiatu zutenez** (8); **ez dela argudiatu** (6); **izan zela argudiatu** (11)

---

argudiatzaile *izond/iz* argudiatzen duena; argudiatzen duen pertsona.

Espainola ez da arraza bat filosofo, gogoetazale edo **argudiatzailea**, zientifikoa. Joxe Azurmendi

Hasteko, **argudiatzaileak** izakien edozein espezie hartzen du, jaio eta hiltzen diren banakoen artetik, eta bere buruan iraganaldira joanez, ondorio hau lortzen du, munduaren betierekotasuna onartzen duen iritziaren arabera, aipaturiko espezie horretako banakoak halako garai horretatik aurrera existitu direnak eta lehenagokoak ere, betiereko iraganaldian izandakoak [...]. Xabier Kintana

---

argudiatze *iz* eztabaida edo kideko batean nork bere aldeko argudioak azaltzea. ik**argudiaketa**.

Poesia, komikia, kirola... hainbat eta hainbat esparru erabiltzen ditu Egañak bere **argudiatze** eta konparazioetarako. Andoni Egaña

Batzuek aseguratzen dute enuntziazio-arloaren garapen gehigarri bat: eurek irekitzen dituzte **argudiatze** , esperientzia, egiaztatze, inferentzia ugariren sekuentziak. Xabier Arregi

Argudiatze horri jarraituz, Mooreren iritziz "ona" kontzeptua beste kontzeptu batera murrizten saiatu diren teoria etikoak, edo kontzeptu hori beste batekin identifikatu dutenak (zorionarekin, adibidez), "falazia naturalista"n erori dira. Askoren artean

Ororen buru, prefetak beti **argudiatze** bera du. Berria - Ekonomia

Horiek beren baitan daramate ondorioa, **argudiatze** deduktiboari begiratuz gero bederen. Askoren artean

Azken honetan, beldurra gizatasunaren motortzat hartuta, Ilustrazioaren ontasunaren idealen **argudiatze** negatiboa egiten du. Berria - Kultura

Galdera horiei (eta antzekoei) erantzun egokia emateko asmotan, teoria etiko arau-emaile desberdinen printzipio nagusiak jasoko dira lehenik, eta horietako bakoitzak darabilen **argudiatze** prototipikoa kasu praktiko batekin testatuko da. Askoren artean

Bat-bateko bertsolaritzak ikerketa mailan duen defizit handia soluziobidean jarri nahi izanez gero, ez litzateke batere desegokia inventioaren alderdi hau, bertsolarien **argudiatze** -estrategiak, aztertuz hasiko bagina, horixe baita, itxura guztien arabera, bertsolarien inprobisazio-artearen funtsezko alderdia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

argudio *(ETCn **23.698** agerraldi)* **1** *iz* zerbait egiaztatzeko edo gezurtatzeko erabiltzen den arrazoibidea edo froga.

Argudio bat besterik ez diet erantsiko orain artekoei, taldea zelako ideiaren kontra; baina oraingo hau, nire ikusmoldean behintzat, erabakigarria da. Koro Navarro

Behin eta berriro, Charliek eta biok bestelako **argudio** eta arrazoibideak genituen Big Joeren desagertzea azaltzeko. Mirentxu Larrañaga

Errealiatea ez duk aldatu, alferrik izan dituk **argudio** eta maltzurkeria guztiak. Xabier Olarra

Argumentu hauek, askotan, protekzionismoaren aldeko **argudio** ere bihurtu izan dira, maiz gainera lehia askearen aldeko jarraitzaile sutsuek aldeztuta. Iñaki Heras

The Economist ekonomia agerkariak jabetza intelektualaren kontrako beste **argudio** bat gehitu du eztabaida honetara. Berria - Gaiak

Ez nuen **argudio** hura erabili. Joxan Elosegi

Argudio horrek ezin konbentzitu ninduen noski, baina, hala eta guztiz ere, nahiz eta aitortu ez, zalantzarik handiena Annie Parmentier-ek salaketa egin arte hain luze itxaron izanak eragiten zidan. Ramon Saizarbitoria

Maimonen arabera **argudio** horiek itxuraz ongi garaturik daude, baina justifikatu gabeko extrapolazio batean oinarritzen dira. Xabier Kintana

Espainia eta Frantziako gobernuen bidegabekeriei, ETA-ren borroka armaturik gabe, askeago, indar handiagoz eta **argudio** gehiagorekin aurre egingo geniekeelako. Herria

Hiru galdera larri eta garrantzitsu hauek behin egiazko frogabide baten bidez ebatzi eta gero, munduaren sorreraren arazora itzuliko gara berriz ere, eta horri buruz izan daitezkeen **argudio** guztiak eskainiko ditugu. Xabier Kintana

Sabatino Aracu Europako ordezkari italiarrak ere **argudio** bera erabili zuen, baina bere kasuan Kataluniaren aurkako botoa emateko: [...]. Berria - Kirola

Argudioen baliozkotasuna **argudioaren** beraren formaren gain zegoela azpimarratu zuten. Askoren artean

2 (izenondoekin)

Bertsoaren bukaeran etorriko da **argudio** nagusia, bertsolariaren aburuz eraginkorrena, egoki formulatu eta beharreko molde metrikoan jokatu ondoan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Halatan, **argudio** nagusiaren hautapenak (inventio) bere formulazioa baldintzatzen du (elocutio), baina formulazio honen araberakoak dira, era berean, gainerako argudioak (inventio) eta bertsoaren egitura (dispositio). J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Jenioa arrazoia baino gorago dago, eta ezin da makurtu eredu edo **argudio** jakinetara. Bernardo Atxaga

Argudio ezeztaezintzat zeukaten gizakiak beste gizaki menderatzaileen zerbitzuan egotea injustua dela. Imanol Unzurrunzaga

Ongi aukeratu eta garatutako bi **argudio** sendo askoz indartsuagoak dira hamabi ahul baino. Txema Ramirez de la Piscina

Nerbio-stressa, bihotz-zirikapena, kontrakzio-fisikoa eta prozesu horretan zorteak parterik ez hartzea **argudio** ukaezinak dira xakea kirola dela argudiatzeko. ez dago zigor edo espediente bati babesa emango dion **argudio** juridikorik. Berria - Kirola

Nire lagun Baltzaren teoriak ez du bere egiazkotasuna frogatzeko **argudio** indartsurik, baina are zailagoa da okertzat jo eta errefusatzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Garai batean liskar horiek parte-hartzaileen kontaktu fisikoarekin erabakitzen ziren, garai horietako logika oinarri-oinarrizkoak eskueran jartzen zizkien **argudio** xinpleak erabiliz: ezpata, lantza, etab. Xabier Olarra

Begira, gero, inork pentsaera eta **argudio** hutsalez engaina ez zaitzaten. Elizen arteko biblia

Argudio sasilogikoaren nahasmendua ongi-ongi ulertu gabe. Josu Zabaleta

Argudio koloreanitzak. Berria - Kirola

Hegemoniaren nozioari esker deskriba daiteke nola adierazten duen herrialde nagusiak ordena desiragarria (**argudio** unibertsalak erabiliz horretarako), eta nola aurkezten duen denentzat onuragarria bailitzan, ordena hori. Koro Navarro

Laugarrenekorik, delako Marexalaren alderdikoei erakutsi nien gero, ene **argudio** zuzenez eta ene urratsez, nahiz ez lanik gabe, kontzientzia garbi izan zezaketetela Errege Katolikoek Nafarroa zuzenki berena zeukatela sinesten baldin bazuten, eta beraz haien zerbitzuko jarriz geroz, haien sariak onar zitzaketela. Piarres Xarriton

Entzuleria jakin batek egokitzak jotzen duen argudioa da erretorikan **argudio** egokia, ez baitago kontu horretan ere berezko egokitasunik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Estatuek globalizazioa ezin dute erabili pobreziaren kontra ezer ez egiteko aitzaki edo **argudio** politiko bezala. Iñaki Heras

Munduan ez da **argudio** zientifiko moderno bat bakarrik ere, noizbaiteko sineste edo ohitura zaharren baten azken orduko produktu sofistikatu ez denik. Patziku Perurena

Argudio makroekonomiko horiez gainera bada beste bat ere, ideologikoagoa: nazioarteko zuzeneko inbertsioaren kasuan ez bezala, kredituari esker teknologiarik modernoena eros daiteke, baina kapitalaren jabetza ez da atzerritarren esku geratzen. Koro Navarro

3. eta 4. kapituluetan, hala eredu batak nola besteak giza hizkuntzaren egiturarako agertzen dituzten desegokitasunak aztertu eta zehazten ditu, **argudio** enpirikoak erabiliz. Itziar Laka

Bere ikusmoldearen oinarrizko **argudio** metodologikoak begiz bereiziezinak diren "bikoteen argudioa" zuen izena. Askoren artean

Nola justifika daiteke epistemikoki **argudio** induktiboa? Askoren artean

Ihesbideak murrizten ari zaizkionaren premiaz **argudio** berriak bilatu nituen. Aingeru Epaltza

Filosofiaren historian proposaturikoen artean Descartesen Jenio Maltzurrarena da ezagunetariko bat, baina berriagoak ere badira, **argudio** kausala (zientifikoa) edo ilusioaren argudioa, esate baterako. Askoren artean

Argudio berberak aurkituko ditugu han eta hemen errepikatuta. Askoren artean

Donald Davidson-ek (1970) Kantengan oinarritutako **argudio** garrantzitsua aurkeztu zuen gogo-burmuin identitate orokorraren aurka. Askoren artean

Kasu guztietan, erabaki horiek hartzeko orduan, hobesten dugun kontzepzio etikoak gure **argudio** eta printzipio moralen norabidea baldintzatuko du. Askoren artean

Handik aurrera, argazkia Pantxikek esan zuenaren aldeko **argudio** errefutaezintzat harturik, hatzaz hura seinalatu eta halaxe esaten nion Leireri: [...]. Joan Mari Irigoien

Sergio eta Sara irritsu batzuk erakusten zituèn argazki handi bat zuen oroigarri, gurasoen etxeko egongelan jarria, huraxe balitz bezala, halaber, haien aurkako **argudio** behin betikoa: [...]. Joan Mari Irigoien

Montseren amak aurrera eta aurrera ekiten zion, hitzari hitza zerraiola, harik eta bere disertazioa liburuen liburutik ateratako **argudio** ustez errebatiezin harekin bukatzen zuen arte: [...]. Joan Mari Irigoien

3 (izenlagunekin)

Aldeko **argudio** batzuk ikusi ditut, dagoeneko, egunotako prentsan. Joxerra Garzia

Kontrako **argudio** baten bila ari naiz, balantza orekan jarraraziko duen ideia baten bila. Oskar Arana

Arrazoi horiekin sortu zuen doktrinarik eztiena, gezurrezko **argudio** batekin ezkutatu zuelarik egia. Askoren artean

Logikan edo matematikan, zuzena da esatea dedukziozko **argudio** batean ondorioa premisetatik lortzen dela modu biribilean. Askoren artean

Zeharkako **argudio** edo adibideak jartzea. Askoren artean

Ez dut gai horretan sobera sartu behar, beste zerbaitetara etorria naiz, eta amore emanen banu legez saiatu dut azken **argudio** bat: [...]. Koldo Izagirre

4 (hitz elkartuetan)

Estiragailu, iz. **Argudio** tresna bat, garai batean fede okerraren jarraitzaileak egia berdaderora erakartzeko maiz erabilia. Xabier Olarra

Zergatik? Oro har, idazleek paragrafoa hartzen dutelako **argudio**-egituraren unitate gisa. Askoren artean

Garapen iraunkor baten aldeko **argudio**-ildo nagusiak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Argudio-kate betegin bat baino ez, inolako akatsik gabea. Juan Garzia

Halere, **argudio** mota horren arriskua nabarmena da: oportunismo merkea. Iñaki Heras

Baina haserreak sortutako **argudio** sorta horrek ez zuen libratzen deseroso sentitzetik. Patxi Iturritegi

Ele dotorez garatzen du bere filosofia kristaua eta aldi berean **argudio** sail osoa asmatzen du, fedezko edukiak desitxuratu nahian inguru hurbilean etengabe azaltzen zitzaizkion aurkarien kritikak desegiteko. Imanol Unzurrunzaga

Irakurleak beharbada biribilkeriaren bat edo **argudio** etenen bat sumatuko zion honezkero gure ikerbideari. Itziar Laka

Hizlari klasikoek bezala, teknika nemotekniko batzuk bideratu behar ditu bertsolariak egiturak (errima eta **argudio** sekuentziak), hitzak eta formulazio zehatzak gogoan edukiko baditu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aristotelesek, besteak beste, silogismo gisako **argudio**-formak landu zituen. Askoren artean

-Nire lana iragarki horren **argudio**-idatzia prestatzea izanen da, ezta? Iñaki Zabaleta

Argudio-paragrafoa: ideia edo tesi baten aldeko (edo kontrako) arrazoiak, judizioak eta irizpideak erabiltzen dira. Askoren artean

Argudio-hobi edo *topoi* horiek bi muturreko antitesi-egitura dute, eta historiako garai bakoitzak joera du antitesi horren mutur bata edo bestea lehenesteko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez zen eskolako ariketa batean ari, **argudio**-trukaketan, edo oratoriazko lehiaketa batean; askoz ere gauza larriago batean baizik. Jon Muñoz

Azkenik, funtzio **argudio**-emailea bete dezakete, halaber, baliabideek. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

5 ***argudio ontologiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Filosofian, **argudio ontologikoa** Jainkoaren existentzia frogatzeko historian erabili den argudio mota bat da, Jainkoaren izaeran ("ontos" delakoan, alegia) oinarritzen dena. ETC-entziklopedia

Hitza erabiliz geroz harrapatuak omen gaude, zeren eta **argudio ontologikoak** dioen bezala behin Jainkoa izendatu ezin baita haren existentzia ukatu. ETC-prentsa

Hor daude **argudio ontologikoak**, diseinuaren argudioa, lehen kausaren argudioa edo Pascalen apustua, besteak beste. ETC-literatura, saiakera

Argudio ontologikoa baino zailago duk hemen deklaratzea. ETC-literatura, saiakera

6 ***argudio teleologiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Wingek **argudio teleologikoa** erabili zuen hori ondorioztatzeko: kromosomak bikotekide baten "premia" du parekatzeko, eta premia horrek osagarri osoa bikoiztera bultza dezake; hala, kromosoma bakoitzak bikotekide bat izango luke. ETC-literatura, saiakera

Argudio teleologikoa edo diseinuaren argudioa Jainkoaren existentzia frogatzeko "a posteriori" motako argudio bat da, naturaren ustezko diseinuan eta xedean oinarritua. ETC-entziklopedia

7 ***diseinu kaskarraren argudio*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Diseinu kaskarraren argudioak kontra egiten dio Jainko sortzailearen ideiari, bizitza mota guztiak sortu zituen Jainkoaren hipotesiari. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldeko argudio (10); **argudio bakar bat** (3); **argudio bakarra** (9); **argudio baten** (4); **argudio bera erabili** (3); **argudio berak erabili** (3); **argudio berarekin** (4); **argudio berberak** (8); **argudio bezala** (3); **argudio da** (3); **argudio egokiak** (3); **argudio ekonomikorik ez** (3); **argudio erabili** (5); **argudio faltsuak erabili** (3); **argudio gisa erabili** (5); **argudio handirik** (4); **argudio hau** (7); **argudio hobi** (4); **argudio honek** (4); **argudio honekin** (3); **argudio honen** (5); **argudio hori erabili** (3); **argudio hori ez** (4); **argudio horiek** (18); **argudio horien** (4); **argudio horrek ez** (3); **argudio horrekin** (4); **argudio horren** (7); **argudio horri** (5); **argudio hura** (3); **argudio juridiko** (3); **argudio nagusia da** (5); **argudio nagusiak** (12); **argudio nagusiaren** (7); **argudio nagusietako** (3); **argudio nahikorik** (3); **argudio oro** (3); **argudio oso** (4); **argudio sendoa** (3); **argudio sendoak** (7); **azken argudio** (5); **baina argudio** (8); **bere argudio** (4); **beste argudio bat** (6); **bi argudio nagusi** (3); **dago argudio** (3); **diren argudio batzuk** (3); **dituen argudio** (3); **dituzten argudio** (3); **du argudio** (4); **duen argudio** (8); **dute argudio hori** (3); **duten argudio** (5); **edo argudio** (3); **egiteko argudio** (3); **emandako argudio** (6); **erabili zuen argudio** (5); **erabilitako argudio** (6); **erabiltzen diren argudio** (3); **ere argudio** (6); **ez da argudio** (3); **hainbat argudio eman** (3); **hainbat argudio ematen** (3); **hamaika argudio** (3); **hiru argudio** (6); **ia argudio guztiak** (3); **konspirazioaren teoriarako argudio** (3); **kontrako argudio** (5); **oso argudio** (3); **teoriarako argudio berriak** (3); **zein argudio** (3); **zen argudio** (3); **zer argudio** (3); **ziren argudio** (5); **zuten argudio** (4)

aldeko argudioa (3); **argudioa erabili** (3); **argudioa ez da** (3); **argudioa izan** (4); **darabilen argudioa** (3); **den argudioa** (3); **duen argudioa da** (3); **duten argudioa da** (3); **erabilitako argudioa** (4); **erabiltzen duen argudioa** (6); **zuen argudioa** (3); **zuten argudioa** (3)

aldeko argudioak (11); **antzeko argudioak** (6); **argudioak aintzat** (3); **argudioak aurkeztuko** (3); **argudioak azaldu** (3); **argudioak azaltzeko** (3); **argudioak aztertzeko** (3); **argudioak baliatu** (3); **argudioak baztertu** (4); **argudioak dira** (3); **argudioak eman zituen** (4); **argudioak emango** (3); **argudioak ematea** (5); **argudioak ematen** (12); **argudioak entzun** (7); **argudioak entzunda** (3); **argudioak erabili** (5); **argudioak erabiliz** (4); **argudioak erabiltzen** (4); **argudioak ere** (9); **argudioak ez du** (3); **argudioak kritikatu** (4); **argudioak onartu** (5); **argudioak ontzat** (3); **bere argudioak** (20); **buruzko argudioak** (3); **defentsaren argudioak** (3); **diren argudioak** (4); **ditu argudioak** (3); **dituzten argudioak** (6); **emandako argudioak** (14); **erabili zituen argudioak** (4); **erabilitako argudioak** (15); **erabiltzen dituen argudioak** (3); **euren argudioak** (5); **fiskalaren argudioak** (4); **gure argudioak** (7); **haien argudioak** (3); **joateko argudioak** (3); **moduko argudioak** (3); **nire argudioak** (5); **ziren argudioak** (3); **zure argudioak** (4)

argudioaren arabera (7)

argudioari ihardesten diot (4)

argudioei aurre (3); **argudioei buruz** (3); **argudioei erantzun** (5)

argudioek ez dute (5)

argudioekin bat egin (3)

argudioen arabera (5); **argudioen artean** (11); **argudioen bidez** (3); **diren argudioen** (3); **dituen argudioen** (5); **emandako argudioen** (3)

argudioren bat (4)

aldeko argudiorik (3); **argudiorik ematen** (4); **argudiorik ez** (3); **argudiorik gabe utzi** (4); **inolako argudiorik** (3)

hainbat argudiotan (3)

---

argudiobide *iz* argudiatzeko bidea.

Hitzaldian Estatutu Politiko Berriaren zergatia, oinarriak, zilegitasuna, zutabeak, edukia eta prozesua azaldu zituen, **argudiobide** berririk jorratu gabe. Berria - Euskal Herria

Gure **argudiobidea** aurrerago eramaten saiatu aurretik, beste zenbait pasadizo nabarmendu nahi dugu, non jarreraren bat sendotu egin den bere aurkako zenbait altxamenduren kontra. Iñaki Mendiguren

Kasu honetan ezinezkoa ere bai, trinkoa baita bere edukia, apur bat korapilatsua bere **argudiobidea**. Xabier Mendiguren Elizegi

Uste dute zure materialak ez duela ematen ganorazko **argudiobiderik** garatzeko modua. Jon Alonso

---

argudioka *iz* argudioak erabiliz.

Bera **argudioka** hasi zenean, hartza izan zela eta ez bere burua botatzeko joera, Corgean doktoreak "zeuk ikusiko duzu, nik esan dizut ene ustea" adierazi nahi zuen keinu bat egin zion. Bernardo Atxaga

---

argudiopean *adlag* argudioarekin.

Etorkin errumaniarren seme izanik, errumaniarrei eta oro har Europa ekialdeko etorkinei atea itxi nahi izan die Howardek, immigrazioak eraso terroristen arriskua handitzen duen **argudiopean**. Berria - Harian

Gertaera horiek ikertzeko **argudiopean**, materiale guztia kendu zien Israelgo polizia militarrak asteartean, antolatzaileak galdekatzeaz gain. Berria - Mundua

---

argumental *izond* argumentuari dagokiona.

Konpainia noblean-ek badu bilduma hartako liburuekin hari estetiko edo **argumental** bat. Berria - Kultura

---

argumentatu, argumenta(tu), argumentatzen du *ad* argumentu gisa erabili.

Ez dakit gustatzen zaidan, baina beti **argumenta** daiteke aurrerapena behinik behin badela. Karlos Zabala

---

argumentatze *iz* argumentu gisa aurkeztea.

Beren irakaspenaren bermatzeko asmatu dutela **argumentatze** medio berri bat, argumentua bilduz ez ezinezkora baina, bai, ezjakintasunera. Piarres Xarriton

---

argumentazio *(ETCn **406** agerraldi) iz* argumentatzea, argumentu gisa aurkeztea.

Argumentazio horri jarraituz, emozio-adierazpen horiek ez dute egia-baliorik adierazten. Askoren artean

Keynesek ez zuen argumentu horren logika ukatzen, alegia, ez zuen esaten egoera bere kabuz konponduko ez zenik, bat zetorren **argumentazio** liberalarekin. Iñaki Heras

Ihardetsi behar izan nion robotari buruzko hainbat ume-irudikeriari, baita hainbeste haserrearazten nauen makinaren aurkako giza aiherkunde hain kamuts horri ere, zeinaren betiko **argumentazio** maiztuak behin eta berriro baitio gizakia ez dela makina bat. Joxe Austin Arrieta

Itxarongo nuke bai **argumentazio** sofistiko hau behin betiko zinez deuseztatzea existentziaren adigaiaren determinazio zehatz baten bitartez. Ibon Uribarri

Ez nintzen **argumentazio** sofistikoetan ibili, nahiz analisia maite nuen. Piarres Aintziart

Argumentazio bide arriskutsu horri eutsiz, hala dio gure disidenteak: "erabateko merkatu-legea, %100ekoa, inoiz aplikatu ez denez, ezinezkoa dela horren aplikazioak, neoliberal talibanek dioten legez, mundu honetan bertan paradisu ekonomikoa sortuko duela zehaztea". Iñaki Heras

---

argumento ik **argumentu**.

---

argumentu *(ETCn **6.473** agerraldi; orobat **argumento** **75** agerraldi)* **1** *iz* argudioa, arrazoibidea.

Beti daude gainera ebidentziak, ideia bat, **argumentu** bat edo arrazoibide bat defendatzeko. Iñaki Heras

Haien **argumentuak** gero eta garbiago iristen zitzaizkidan, geziak bezala. Pako Aristi

Ortodoxia dago zalantzan, eta gero eta pertsuasiboagoak izan **argumentuak**, orduan eta larriagoa izango da iraina. Iñaki Heras

Arrazoitzeko ailegatzen duen hori, ez dakit zein Basaburutan ez dakit zeinek esan omen duen ez dakit zer, anekdota pintoreskoa da, ezen ez **argumentua**, higatutxoa baliabidea, zuribide politikero gisa ere xahar eta txarra. Joxe Azurmendi

Filosofiako teoriek laguntzen dute, esate baterako, **argumentuak** eraikitzen, gure nortasuna finkatzen, gure zibilizazioa zertan oinarritzen den jakiten, kritika argudiatzen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Orain, arazoa hobeki argitzeko, kontrakoen **argumentuei** ihardetsiko diet, hauek guztiak honela biltzen baitira: [...]. Itzulikatu nituen **argumentu** guziak. Piarres Xarriton

Argumentua atal txikitan antolatuta dago. Irakurleak ez du tranparik aurkituko **argumentuaren** harian. Pablo Sastre

Belarri batetik sartu eta bestetik irteten zitzaizkidan haren **argumentuak**: [...]. Anjel Lertxundi

Urrunegi joan nintzen beharbada, egiaz ez nintzela haren **argumentuaz** akordatzen ere esan bainion. Ramon Saizarbitoria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Izan ere, **argumentu** ideologiko, politiko edo etikoez gainera, **argumentu** teknikoa argia eta garbia baita: [...]. Iñaki Heras

Arrazoimen hutsaren antinomia osoa **argumentu** dialektiko honetan funtsatzen da: [...]. Ibon Uribarri

Hori **argumentu** defentsibo bat da, eta defentsa zerbaiten beldur zarenean bakarrik erabiltzen da. Pako Aristi

Eta, **argumentu** hura, Sancho Panzarena berarena izan zitekeena, bertze **argumentu** teologiko batekin indartzen zuela, don Frantziskok segitu zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Argumentu kosmologiko honetan hainbeste oinarri-esakune sofistiko biltzen dira, ezen baitirudi arrazoimen espekulatiboak hemen bere antze dialektiko guztia eskaintzen duela. Ibon Uribarri

Enplegu osoko doktrinaren kontra oinarri politikoa dago, nahiz eta ematen diren **argumentuak** ekonomikoak izan. Iñaki Heras

Argumentu unibertsalistetan, liberaletan eta utilitarioetan oinarritutako independentzia, ez **argumentu** identitarioetan. Joseba Zulaika

Logikak ez du **argumentu** sofistikatu beharrik: printzipioaz bizi da, ondorioa kausan dago. Piarres Aintziart

Beraz, nik uste dut hizkuntza dela, behar luke izan behintzat, abertzaletasunaren ezaugarri oinarrizkoa eta ideologia hau bermatzen duen **argumentu** funtsezkoa. Pello Salaburu

Oro gezurra zela baieztatu ez ezik euren tesi hori **argumentu** ugaritan oinarritzen zuten. Imanol Unzurrunzaga

Kapitulu honetako **argumentu** orokorrarekin -hau da, erromatar armadak Kristau Elizaren garapenean izan zuen eraginarekin- zerikusi handiena duena. Iñaki Mendiguren

Argumentu osoa onartzen dut. Ibon Uribarri

Ez zela beharrezkoa ekonomia krisi garaitik ateratzeko gobernuak neurririk hartzea, izan ere krisitik bere gisara aterako baitzen ekonomia (esku-hartzearen kontrako **argumentu** nagusia). Iñaki Heras

Pisuzko **argumentuak** jarriko dituzte mahai gainean. Pello Salaburu

Argumentu praktikoa edo teknikoa eman baitzuen errentaren birbanaketaren politikaren alde (zehatz esanda, errentaren gaineko zerga progresiboaren alde, edota prestazio sozialak ezartzearen alde). Iñaki Heras

Argumentu ezaguna da: [...]. Iñaki Heras

Alicek pelikula horren **argumentua** ona dela onartu du. Iban Zaldua

Neskaren **argumentu** melengek mutikoa hormatzen baldin bazuten, haren bular alde opulantak suaren menera aurtikitzen zuen. Itxaro Borda

Serge ateoaren **argumentuak** indartsuak dira, fededun eta apez anitzenak baino seriosagoak, hori bai. Piarres Aintziart

Platonek **argumentu** razionalik finenak bururatu ditu arimaren espiritualtasuna -gorputz edo materiatik menderatzeko gabetasuna- eta haren hilezkortasuna frogatzeko. Askoren artean

Defentsak ez du **argumentu** gehiegirik behar bere bezeroaren errugabetasuna frogatzeko. Patxi Zubizarreta

Irakurlea edo egilea **argumentuko** bilbean trabatuta gera daitezke, pertsonaien maila berean. Iñaki Arranz

3 (izenlagunekin)

Ez zuen aurkako **argumenturik** aurkitu, baina apur bat nahasia zirudien, gaitzitua ez esatearren. Urtzi Urrutikoetxea

Bere Vitruvio hori, ordea, autoritatezko **argumentu** bat besterik ez da, jadanik, arkitektura greziarraren aurka beste arkitektura etrusko-erromatarraren nagusitasunaren alde egiten duen defentsa horretan. Santiago Iruretagoiena

Ezaguna da -bestelako **argumentuez** gainera- gizaki horien hezkuntzak etorkizunerako garapen ekonomikorako betetzen duen paper garrantzitsua. Iñaki Heras

4 (hitz elkartuetan)

Globalizazioak, eta azken batean, horrekin batera hedatzen ari omen den merkataritza askeak mundu osoan konbergentzia eta hazkunde ekonomikoa ekarriko duela diote batzuek, librekanbismoaren aldeko **argumentu** andana tipikoa erabiliz. Iñaki Heras

Argumentu eta kontra-**argumentu** hauek guztiak, bai eta hamaika berri, albiste eta zurrumurru ere, patioan etengabe eztabaidatzen ziren, Antzinateko arkitektura zuzenean aztertzea proposatzen zuen autoritate-**argumentuaren** aurrean. Urtzi Urrutikoetxea

Teoria hauek hobeto txirikordatzeko **argumentu**-hari soil bat sortu nuen, pentsatuz ideiek hobeto bidaiatzen dutela bidaia baten kronika osatuz eta apainduz. Pako Aristi

5 ***Periastroaren argumentu*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Periastroaren argumentua gorputz zerutar baten orbita zehazteko erabiltzen den elementu orbitaletako bat da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **argumentu andana** (3); **argumentu bat** (10); **argumentu hau** (10); **argumentu hauek** (3); **argumentu hori** (3); **argumentu horiek** (3); **beste argumentu** (4); **duen argumentu** (4)
>
> **argumentua da** (3); **da argumentua** (4)
>
> **kontrako argumentuak** (3)
>
> **argumentuari dagokionez** (3)
>
> **argumenturik ez** (3); **argumenturik gabe** (3)

---

ari

1 ***ari izan,***[1] ariko *(orobat **arizan, arizanen** ipar)* **1** *da* ad jardutea adierazten duen aditza, batez ere ekintza ez burutuak eta ohiturazkoak ez direnak gauzatzen dituzten perpausetan erabiltzen dena. ik **aritu**.

Egoeraz **ari naiz**. Lander Garro

Horretan **ari ginela** sortu zen Italiako bidaiarena, ustekabean, berak egindako komentario bati guk helduta; izan ere, Anduk inork sekula egunkari-zuzendari baten aurrean egin behar ez duena egin baitzuen: ideiak eman. Anjel Lertxundi

Leize zuloetan gizona eta zakurra ehizan batera **ari diren** pinturak agertu izan dira. Gotzon Garate

Oraindik ere galdezka **ari natzaio** neure buruari zergatik eskaini zidan Patxi Altunak hitzaurre hau idaztea, noiz eta aldamenean dituenean, Loiolan bertan, Ignacio Cacho, Iñigo de Loyola. Patxi Altuna

-Zer **ari haiz** hor? - entzun du Abelek. Pello Lizarralde

Zailtasunaz **ari garela**, aitortu behar da gai teoriko eta teknikoetan euskaraz zehatz izatea ez dela nolanahiko erronka, hizkuntza dagoen garapen eta erabilera mailan dagoela. Lourdes Oñederra

Irailaren 11ko gertakariez-eta **ari dela**, Bariccok zer edo zer esaten din etorkizuneko gerrez. Iban Zaldua

Ate joka **ari ziren** Joseba esnatu zenean. Iñaki Zabaleta

Aski zela pentsatu zuen, hilarrien artean larrutan **ari zen** bitartean zizelkariarekin, eta haren seme gaztea begira, aurpegian gorroto zaharra eta apetitu berria zituela. Anton Garikano

Euskaraz-edo **ari garenean**, alegia, eta euskaraz-edo **ari zaizkigunean**. Joxerra Garzia

Bere paperak atzera utziko al zizkidan galdetu nion, nondik nora kontatu asmatu nahian **ari nintzela**-eta. Agurtzane Juanena

"Zertan **ari haiz**, Baltasar? ", galdetu zion ikaratuta. Bernardo Atxaga

Zuen jateko setaz **ari den** piztia tzar baten mihi gaitzak eragindakoak dirudite oihal gotor-latzaren kraskadek. Xabier Montoia

Sexologia ere aspalditik **ari da** primateen, gure senideen jokabide sexualak aztertzen: haien jokaera autoerotikoa, iniziazio sexuala, ugalketa, arren eta emeen arteko loturak, umeen hazkuntza, etab. Luis Elberdin

Gizakiaren erakuntzaz **ari garenean**, alde batera eragin behar zaio gaizkiulertze bati: gizakiari buruz arimaz eta gorputzaz hitz egitean, horiek ez dira ulertu behar gainditzen dituen legezkotasun batetik osagai heterogeneo konposatu gisa. Piarres Xarriton

Horrekin batera, ezbeharrarena ere aipatu zuten: atxilotua ustez zulo batean lehergaiekin **ari zela**, zerbaitek huts egin eta eztanda gertatu bide zela. Iñaki Iñurrieta

Bi bezeroak franko ahopetik **ari ziren** errusoz nagusiarekin. Matías Múgica

Oso ondo ikusi zuelako norekin **ari zen**. Jesus Mari Mendizabal

Ezta pertsonaia bere buruarekin bakarka **ari denean** ere: nork berma diezaguke ez duela bere burua engainatzen halako bakarrizketa sarrietan? Juan Garzia

Arrosa-landareetan **ari zen** Nunu lanean. Ander Irizar

Gernikako arbola zaharra idortu da, haren aldamenean arbola berri gaztea goititu nahita borrokan **ari da**. Joxe Azurmendi

Aarontxo, zer **ari haiz**! Juan Garzia

Bost urte zituela trauma ikaragarria jasan zuen, bere aita hil baitzuten meskitan errezoan **ari zela**. Fernando Rey

"Jarraitu aurreko taxi horri", txantxetan **ari garela** uste izaten du horrelakoetan gidariak, eta dirua aurretik eman behar izaten zaio, bi mila bat eskudo bai, behar adinako arreta jar dezan. Harkaitz Cano

Dursley jauna ahopean kantan **ari zen** lanerako gorbatarik aspergarriena aukeratzen zuen bitartean, eta Dursley andrea isildu gabe berriketan **ari zen** pozik, nahiz eta ahalegin handiak egin behar izan garrasika **ari zen** semetxoa aulki altuan jartzeko. Iñaki Mendiguren

Josebarekin maiteminduta zaudela ematen du! - bota nion behin bere lehengusuaz begi eztitsuz hizketan **ari zitzaidanean**. Aitor Arana

Halatan eta urteetan egindako lanari esker, ez dut arazo larririk ezkerraz soilik **ari naizenetan**: berdin-berdin jo ditzaket eskuinaz zein ezkerraz teknika handia behar duten esku bakarrerako pasarteak, inork ez lidake igarriko ez naizela ezkertia. Anjel Lertxundi

Lehen zatian, Platonez **ari da**, haren bizitzaz, haren lehenengo elkarrizketez eta teoria politikoaz eta elkarrizketa metafisikoez. Askoren artean

2 (beste aditz bati atxikia)

-Gurtzen **ari zaretena** - esan zien - elementu bat sortzeko tresnak dira; ez duzue gurtzen ezta elementua bera ere, eta berorren agerpenari trabak ipintzea besterik ez duzue lortzen horrela. Jon Arretxe

Eta zu erregearekin mintzatzen **ari izango** zaren bitartean, sartuko naiz ni zure ondoren eta zure esanak baietsiko ditut. Elizen arteko biblia

Ez dakit, agian oker egongo naiz eta exajeratzen **ari naiz**. Hasier Etxeberria

Gizon bat epitafioa zizelkatzen **ari zen** hiru hizkuntzatan, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz: "Ez zen inoiz paradisutik hurbilago egon rantxo honetan pasatako denboran baino". Bernardo Atxaga

(Lane arratsaldeko tea zerbitzatzen **ari da**. Antton Olano

Are gehiago, senarrak bere baitan sentitzen zuen gorrotoaren garrak, denboraren poderioz itzali beharrean, hauspotzen **ari zirela** ematen zuen. Martin Anso

Komunera sartu zenean, Jemen txiza ikusi zuen, eta, igerian, gero eta gehiago hondoratzen **ari zen** paper arrosa. Patxi Zubizarreta

Ama pentsati gelditu zen taulari begira, eta hasieran uste izan nuen nire azalpen aztoratuak xake taula gainean ikusten saiatzen **ari zela**. Alberto Ladron Arana

Europako kulturak ezagutzera omen goaz eta ezagutzen **ari gara**, bai horixe, baina ez oraingoak bakarrik, baita iraganekoak ere. Edorta Jimenez

Artean ere morroia paperean idatzitakoa silabaz silaba irakurtzen **ari zela**, Pavel Ivanovitx Txitxikov bera hiria ikustera joan zen. Jose Morales

Zientzia politikoak ikasten **ari zen**, oporretan ezagutu nuen eta gero Bordelera joan nintzaion bisitatzera. Joseba Urteaga

Eroriko larri hura izan nuen arte, lortua nuen zazpigarren antxume irautea, ordulariaren atzean gordeta, denborak aurrera egin ahala istripu larririk jasan gabe handitzen **ari bainintzen**, edozein haurrek lasterka edo jauzika edo beste haurrekin harrapaketan dabilelarik gertatu ohi zaizkionak besterik gabe. Juan Kruz Igerabide

Emakume bat azterketak zuzentzen **ari zen** tente samar, oso ziur. Joseba Urteaga

Autobuseko kobradoreak kasurik egiten ez zionez Sakabiri deitu edo galdetu zion noizbait, eta honek "Bazaukat gazte bat lata ematen **ari zaidana** ... " Koldo Izagirre

Ea argituko al nion zer **ari zitzaion** gertatzen. Xabier Olarra

Ez, hori lelokeria, zer esaten **ari naiz**? Hori ez da hasteko modua, horrela ez. Karlos Zabala

"Fartsatzat" jo zuten Sanzen ekitaldia, eta "herriak suntsitu izana" ospatzen **ari zirela** salatu zuten. Edurne Elizondo

Eta horixe **ari zaio** gertatzen "Euskara Batuaren" deiturapean hedatu zen hizkera mota jakin bati. Koldo Zuazo

atera zitzaion barren-barrenetik oihua Lauaxetari, bera eserita zegoen bankura gerturatzen **ari zen** ertzain-autoaren kanpoaldeko errotuluei harriduraz begira. Juan Luis Zabala

Ankitos-en etxean afaltzen **ari zen** egun batean, gizon haserre bat oldartu zen aretora, ezpata eskuan. Juan Garzia

Olio berotan biguntzen **ari zen** tipularen usaina zabaldua zen zirriztu guztietara. Joxemari Urteaga

Arrapaladan sartu zen alkatearen gelan, nekazarien ordezkariekin hitz egiten **ari zela** hura, eta orduantxe bakarrik hartu zuen Joanesek arnasa. Felipe Juaristi

Elurra hasi du hau idazten **ari naizen** egun honetan. Pako Aristi

Orain, arratsaldeko laugarren kubalibrea hartzen **ari den** bitartean, bere kirol karreran egindako unerik gozoenak - telebistaz inoiz emanak edo bestela filmatuak - ikusten eta berbizitzen **ari da**, ikus-entzunezkoetan lan egiten duen lagun batek moldatutako bi orduko bideoan. Joan Mari Irigoien

Haien aita izugarri aldatzen **ari zen**. Jasone Osoro

Izenburuak ikusmiratzen **ari nintzela**, begiak honako honetara joan zaizkit: "Infidelitatea: bikotearen sukarra". Patxi Zubizarreta

Hainbat bezero, dibanetan eseriak, nargile erretzen eta tea edaten **ari ziren**. Patxi Zubizarreta

Aurten poeta erromantikoen gaineko ikastaroa **ari da** ematen. Oskar Arana

Adarenganaino joan, eta, haren sorbaldaren gainetik begiraturik, bera ere Danelen gonbita irakurtzen **ari zela** ikusi nuen. Anjel Lertxundi

Joxanek irribarre apalez begiratu dio, arrain saltzailea esaten **ari dena** ulertzen duen keinuaz, bat-bateko hitz aspertua eskertuko balio bezala. Paddy Rekalde

Ze beste bigarren horretan elkarri lepoa emanez ilaran jesarrita diren lau gizonen gainean jauzi egiten **ari da** gaztea. Edorta Jimenez

Kapitulu bat **ari natzaizue** irakurtzen, jaunak, hasiera-hasierakoa. Pako Aristi

Eta erabiltzeko aukera egon balitz ere, ez zuen Matiasek erabiliko, etengabe **ari baitzen** komuneko atearen aurretik jendea pasatzen, emakumeak batez ere. Unai Elorriaga

Hamar epiklesiz osaturiko sail bat idazten **ari naiz** aldizkari baterako. Irene Aldasoro

Handik berrogei bat metrora, bera ibiltzen **ari zen** espaloian aurreraxeago, Stein arma-fabrika zaintzeaz arduratzen zen polizia-taldea txanda-aldaketa egitera zihoan. Pedro Alberdi

Urrats bakoitzean, zientzialaria beharturik dago kritikaren eta esperientziaren irizpena jasotzera, eraikitzen **ari den** mundu-irudikapen horretan ezinbestean dagoen amets parte hori estu lotzeko. Juan Garzia

Ez da eratzen **ari den** izakia, existitzen den izakia baizik". Itziar Otegi

Charlie-ren lepoaldean zintzilikatuta noalarik, badakit nire axolagabekeria-garaiaren azken uneak bizitzen **ari naizela**, eta ez naizela pertsona bera izango arratsaldean etxera itzulitakoan. Mirentxu Larrañaga

Gezurra esan dizute beti: azken momentu honetan ez zaizu bizitza begien aurretik pasatzen, film batean legez; heriotza baino ez duzu ezagutzen bonbillatik gertu txikitzen **ari diren** ninietan. Sonia Gonzalez

Alabaina, aurkezten **ari naizen** idazlan hauetan kazetari samar agertuagatik ere, Perurena poeta da funtsean eta batik bat, eta bihotza gailentzen zaio, argi asko, aipatu buruaren arteko lehia horietan. Patziku Perurena

Ez dakit lerro horiek aurkitzen direnetz maisuaren obra osoa biltzen **ari diren** liburukietan, baina uste dut merezi dutela hor sartzea. Piarres Xarriton

-Baina zer egiten **ari da** zure zakurtzar zikin hori nire txakurtxoarekin??? Jon Arretxe

Liburu hau idazten **ari garen** unean abian da XXI. mendeko lehen txapelketa, 2001ekoa, hain zuzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eta, dagoeneko nabaritu dukegun moduan, adituak oraindik ere eztabaidatzen **ari dira** zein diren zehatz-mehatz Maimon esoteriko horren tesiak. Xabier Kintana

Eta orduantxe aipatu du bere irudiko "alderdi garrantzitsua": kazetari zen sasoitik ezagutzen du eta "munduaren iritzia" deritzo; gertatzen **ari zaigunak** zirrara handia eragin duela esan digu. Urtzi Urrutikoetxea

Beste baldintza garrantzitsu bat ere bete behar dute hezurrek: hazten **ari direla** ere, lanean jarraitu behar dute. Irene Aldasoro

"Hara! hara! mekanoa!", hasi zen haurra, ikusten **ari zenarekin** txundituta. Jokin Muñoz

1999an, azaroan, zuzenbide ikasten **ari zen** Samiya Haiquiqui 24 urteko neskatxa desagertu egin zen New Yorkeko Queens eskualdean. Gotzon Garate

Urduri jartzen **ari nintzela** ikustean, barrezka hasi eta eskutik heldu zidan. Juan Martin Elexpuru

Ziur dago egin duenaz eta egiten **ari denaz**. Ana Urkiza

3 ***ari izan,***[2] ariko *du* ad

Ainitzek pentsu dute Mazedoniako armadaren jokoa dela, Albaniarren kontra **ari duen** oldarraren karietarat egina. Herria

Bixtan da neurri zorrotzak **ari dituztela** hartzen han gaindi gaitzaren kontra. Herria

Jazarleek **ari zuten** beren larderia hedatzen ipar aldean, bainan entseatzen ere hegoari buruz. Herria

Etxetiar eta ofiziale gehienak arrotzak ditugu, nonbaitik etorriak, osoki erdaldunak, eta gure mintzai ederraren orde, ez dakit zer hizkuntza ahalkegarri gutartean hedatzen **ari dutenak**. Xipri Arbelbide

Euria ere, itsasoan **ari duelarik**, mesede gerta lekioke irla txiki batean naufrago dagoenari. Joxerra Garzia

Euria **ari du** eta kaleak distiratsu daude. Lourdes Oñederra

Krisia **ari badu**. Joxe Azurmendi

Txingorra **ari zuen**, kazkabarra nahi baduzue. Pako Aristi

Euria **ari du** oraindik, baina ez idolaz, atzo bezala, tenperaturak, dirudienez, behera egin du, itxi bedi, hortaz, leihoa, arrazoi osoz, gainera, etxeko giroa araztu baita barraren aldetik zetorren putz kemen emailearekin. Jon Alonso

Haur guztiak Adelaren gelan gaude, argirik gabe, ekaitza **ari baitu** eta Juliok etxera bidali baikaitu bere gelakook. Juan Kruz Igerabide

Iluntzen **ari zuen**, eta autoak plisti-plasta zihoazen kanpoko errepidean. Koro Navarro

20 urte baizik ez zituen eta ikasketak egiten **ari zituen** Tolosan. Piarres Xarriton

Eguna argitzen **ari zuen**, oskarbi, eta hotza hezurretaraino sartu zitzaidan Ibarraren kamioiko epeletik atera nintzenean. Alberto Ladron Arana

Etxean izango gara hamar minutu barru... eta eskerrak, argitzen **ari baitu** ... Iñaki Mendiguren

Emeki emeki, azken hamar urte hauetan, Euskal Herrian euskaraz agertu diren obra zenbait **ari ditut** biltzen. Piarres Aintziart

Baina etxe hartan udazkeneko hostoak erorita zeuden ordurako, hosto ihartu bakan batzuek zirauten adarretan, baina elurbustia **ari zuen** haien gainean. Ibon Uribarri

Orduan oinaztu isila **ari du**, izu beltzik eta iskanbilarik gabe. Xabier Amuriza

Gogotik **ari zuen** euria eta sofan kizkurtuta zegoen Olatz. Harkaitz Cano

Musika **ari zuen**, eta Enperadorearen guardiak esan zion kondesa frantsesari: "Nire herrian sentimendua modu bortitz eta itzurezinean agertzen da". Xabier Olarra

4 ***arian ari***

Eta horrela, **arian ari**, elkarren ezagutza sendotuz zihoala esango nuke. Xabier Mendiguren Elizegi

Aurkitu genuenean, esan bezala, irratia **arian ari** zen. Joxe Austin Arrieta

Eta, horrela **arian ari** zela, etorkizunaz hitz egiten zioan bati. Juan Garzia

Edelmanentzat, Bartlettentzat bezala, **arian ariko** prozesu dinamikoak ditugu beti, eta gogoratzea, berriz, beti da berregitea, ez berremate hutsa. Xabier Olarra

5 *arian-arian*

Arian-arian sortzen ari dira, beraz, oraingo kudeaketa moduen osagarri -edo ordezko- egoki izan litezkeen tresnak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Arian-arian, guztiz ezezagun ziren molekula batzuk ere aurkitzen dira. Besteak beste, mintz-arteko konduktantziaren erregulatzailea; harexen matxura jakin batzuk dira, antza, mukobiszidosiaren kausa. Juan Garzia

Gizarte eta legeria berri hark, neurri handi batean bederen, Euskal Herriarena deuseztatu zuen **arian-arian**. Andres Urrutia

Koltxoiaren gainean etzanda, begiak itxi dituzu, eta **arian-arian**, zentzumenak apaltzen hasi zaizkizu. Rafa Egiguren

Gerora, denboragarrenean, eta **arian-arian**, ikasi egin dugu. Iñigo Aranbarri

DIU honen berrikuntzarik nabarmenena da Levonorgestrel hormona askatzen duela **arian-arian**, eta, hala, besteak baino askoz ere fidagarriago adela. Luis Elberdin

6 *ariaren ari(a)z* arituz eta arituz.

Ariaren ariz sendoago egiten da eta bihotz zabaltasunez aberatsago. Joan Mari Lekuona

Eta **ariaren ariaz**, menderatu egingo dut. Txillardegi

7 *ariz-ariz*

Hobetuz joan dadila hau, holako konpainian ibiliz oraino gehiago eta ere hatsa bilduz oraino, **ariz ariz** eta lasterkatuz. Herria

Ariz ariz, bilduko besteen maila Herve Etcheverry eta gazteek ere. Herria

8 *hitzak ari bira* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Hitzak ari bira. ETC-prentsa

Hitzak ari bira, dugun egina. ETC-prentsa

9 *hobera ari izan*

Frantzian ere ez dira **hobera ari,** bozkatu dituzten Judioen Estatutuari buruzko bi legeekin. Itxaro Borda

Denborarekin, Hutx **hobera** ari zen nabarmenki eta taldean bere ohiko tokia hartu zuen. Itxaro Borda

Ez nintekeen hari fida pausu luzamen zenbaiten ardiesteko gorputzaldi osoa **hobera ari** zitzaidan. Marzel Etxehandi

---

aria 1 *iz* ahozko musika zatia, eskuarki oratorio edo opera batekoa, formaren aldetik abesti baten eitekoa, baina hura baino landuagoa.

Genero horretan, ohi den legez, ez dago korurik, eta bakarlarien artean zabaltzen da kantaldia: errezitatibo, **aria**, cavatina, duo, trio, laukote, boskote eta azken eszenetan seikote. Berria - Kultura

Eta han jarraitzen zuen bizar-labanak burrunbaz, nota bakarreko bere **aria** hura abesten. Oskar Arana

Tomasz Slawinski baxu poloniarraren Fidelio operako **aria** batekin hasi zen finala. Berria - Kultura

Segituan, Toscanako gizonezko batek Verdiren *Oh, mio rimoroso* izeneko **aria** abestu zuen finezia handiz, orkestra lagun zuela. Josetxo Azkona

Une hartan Maria Callas ari zela Belliniren *Norma*ko **aria** bat kantatzen. Juan Kruz Igerabide

Opera konpainiekin joana zen Ameriketara, eta jakin bazekien zenbait erromantza eta **aria** kantatzen, eta gure aitak entzuten zizkionean poz-pozik jartzen zen. Pello Lizarralde

Soprano-ahots bat goratu zen lantegian, eta a cappella abestu Bachen kantata bateko **aria**: *Ich habe genug*. Jon Muñoz

Mendelssohnen *Eliah* oratorioko **aria** batekin bukatu zuten egitaraua. Berria - Kultura

Guztiok garbi izan genuen, urtetan, gaitasun izugarria zuela Stephenek musika-tresnen hotsak, ahotsa, ahoskera, intonazioak, doinuak, erritmoak, **ariak**, abestiak -are letradunak behar izanez gero- berremateko, eta ahaleginik eskatzen ez zion entzutezko oroimen handi eta zehatz baten jabe zela. Xabier Olarra

Maria Bayo soprano nafarrak zarzuela barrokoko **ariak** taularatuko ditu Iruñeko Baluarte auditorioan, hilaren 24an. Berria - Kultura

Oso tipo alaia omen zen Agirre, ondo jan eta edan ondoren Verdiren operetako **ariak** kantatu zalea. Mikel Hernandez Abaitua

Cecilia Bartoli Italiako mezzosoprano prestigiotsuak Haendel eta Scarlattiren **ariak** abestuko ditu, gaur Iruñeko Baluarten eta datorren asteartean Bilboko Euskaldunan. Berria - Kultura

XVII eta XVIII. mendeetako musikagile italiar eta alemaniarren **ariak** interpretatuko ditu, gaur, Maite Beaumont (Iruñea, 1975) mezzosoprano gazteak, Iruñeko Baluarten. Berria - Kultura

Pasarte onen artean *Un vel di vedremo* **ariak** jaso zuen entzuleen txalo zaparrada. Berria - Kultura

Disserratevi, i porte d'Averno **ariaren** interpretazio zoragarriarekin. Berria - Kultura

Belliniren La Sonnambula operaren Ah, non giunge **ariaren** bukaeran, kioak egin zituen, eta halako dardara atera zitzaion ikusle bati baino gehiagori. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Kontua da, baliabidez beterik gainditu zuela Rossiniren *Semiramide*-ren **aria** zaila. Berria - Kultura

Aria zail baina beti arrakastatsu bat ondo abestu berri duen artistaren antzera, eseri, hatz bustiak atorran lehortu, eta bere buruaz harro begiratu zien aretoan zeuden guztiei. Jose Morales

Erratu ez bada behintzat, paratu ez badu, aurrekoan bezala, *Cavalleria Rustica*naren **aria** nagusia. Monika Etxebarria

Leunki, arnasarik hartu gabe, italiar **aria** erraz bat txistukatu zuen. Jose Morales

Lascia la spina, cogli la rosa **aria** famatuarekin, esaterako, ez zen *brava*-rik izan. Berria - Kultura

Dena zenez liluragarria Lajosen inguruan, ez zitzaidan inondik ere ezinezkoa iruditzen halako batean hura berriro agertzea, antzezpen moduko batean, Lohengrinen itxura hartuta **aria** izugarri bat kantatuz. Ander Irizar

Teresaren **aria** hegalariek ez dute berarengan su pindarrik ere pizten. Oskar Arana

Brava! ozenak lehen kantarekin entzun ziren, *Vanne pentita a piangere* edo *Caldo sangue* **aria** sentiberekin. Berria - Kultura

Harentzat amestu zituen **aria** arranditsuak zokoratu egiten ditu, isilean; hortik musika-tresna haren eskuetan ipintzera urrats txiki bat baino ez da geratzen, ordea. Oskar Arana

3 (hitz elkartuetan)

Sinfonia eta opera **ariak** taularatuko ditu Mozarten obrak besterik lantzen ez dituen taldeak. Berria - Kultura

4 irud/hed

Eta han jarraitzen zuen bizar-labanak burrunbaz, nota bakarreko bere **aria** hura abesten. Oskar Arana

---

arian 1 *adlag* arituz, ekinez.

Usaia, bistan da, **arian** lortzen ahal duzu, abdominalak hilduratzearen poderioz etorri ohi da gerriaren zalutasuna. Koldo Izagirre

2 *arian ari*

Eta horrela, **arian ari**, elkarren ezagutza sendotuz zihoala esango nuke. Xabier Mendiguren Elizegi

Aurkitu genuenean, esan bezala, irratia **arian ari** zen. Joxe Austin Arrieta

Eta, horrela **arian ari** zela, etorkizunaz hitz egiten zioan bati. Juan Garzia

Edelmanentzat, Bartlettentzat bezala, **arian ariko** prozesu dinamikoak ditugu beti, eta gogoratzea, berriz, beti da berregitea, ez berremate hutsa. Xabier Olarra

3 *arian-arian*

Arian-arian sortzen ari dira, beraz, oraingo kudeaketa moduen osagarri -edo ordezko- egoki izan litezkeen tresnak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Arian-arian, guztiz ezezagun ziren molekula batzuk ere aurkitzen dira. Besteak beste, mintz-arteko konduktantziaren erregulatzailea; harexen matxura jakin batzuk dira, antza, mukobiszidosiaren kausa. Juan Garzia

Gizarte eta legeria berri hark, neurri handi batean bederen, Euskal Herriarena deuseztatu zuen **arian-arian**. Andres Urrutia

Koltxoiaren gainean etzanda, begiak itxi dituzu, eta **arian-arian**, zentzumenak apaltzen hasi zaizkizu. Rafa Egiguren

Gerora, denboragarrenean, eta **arian-arian**, ikasi egin dugu. Iñigo Aranbarri

DIU honen berrikuntzarik nabarmenena da Levonorgestrel hormona askatzen duela **arian-arian**, eta, hala, besteak baino askoz ere fidagarriago adela. Luis Elberdin

---

arianismo *iz* Jesu Kristoren berezko jainkotasuna ukatzen zuen heresia.

Arabiar konkistaren ondorengo lehen denboraldian, Islama izan zen barbaro garaile haien erlijio bereizgarria, **arianismoa** Erromatar Inperioko zenbait probintziaren konkistatzaile teutoniko gehienen erlijioa izan zen bezalaxe. Iñaki Mendiguren

---

ariar *(orobat **ariotar** g.er.)* **1** *izlag/izond/iz* gizakiez mintzatuz, antzinatean Indiaren iparraldean eta gero Asia eta Europako hainbat eskualdetan bizi izan zena. ik **ario**.

Neurekoikeriaz ari naiz: sudurluzeok susmagarriago izango gara beti **ariar** arrazako poxpolinak baino. Joxerra Garzia

Nor zuten Lug jainko hau? **Ariar** kastako haien jainko aldra, galiar eta erromatarren artean, Merkurio jainkoaren kidekoa izan daiteke. Pello Zabala

Gobineau edo Chamberlain arrazista biologikoak direna, ez da dudatzen; baina arraza **ariarra** goratzeko haien arrazoi guztiak moralak eta kulturalak dira: izan ere, "historia" egiten dute, ez zoologia. Joxe Azurmendi

Batek baino gehiagok esan du, Ortega-k horien artean, zibilizazio historiko handi bakarra, arraza -**ariar**- bakarrak jaso duela. Joxe Azurmendi

Ez gugan, eta ez oro har gure belaunaldiarengan, **"ariar"** zein judu izan, ez zen artean erne faxismoari aurre egin behar eta ahal zitzaiolako burutaziorik. Juan Garzia

Zer gertatzen da espainolak **ariarrak** ez badira? Joxe Azurmendi

Turaniarrak eta iparreko **ariarrak**, berriz, izadia den bezala ikusten ahalegindu ziren. Josu Zabaleta

Hanburgoko arropa-garbitzaile baten eta trenbideko langile baten alaba zen; gurasoak **ariarrak** zituen biak, baina Friedelek judua ematen zuen. Koro Navarro

Gogora bedi nola 1896an Vacher de Lapouge-k, gorentasun nordikoaren iragarleak, bere teoria zabaldu zuen, zeinetan irakasten baitzuen, antzinako grekoak, zibilizazio europarraren asmatzaileak, jatorri **ariarreko** dolikozefaloak eta ile-horai-lak zirela, iparraldetik Heladera migratuak. Joxe Azurmendi

Zenbait apezpiku errege **ariarrak** suntsitzeko katoliko frankoez baliatu zirelako, hortik atera al daiteke herri barbaroen mende bizi nahi izan zutela? Iñaki Iñurrieta

Hitler edo Rosenberg-en testuek berek arrazaz beti kualitate moralak ulertzen dituzte, eta ezer baino gehiago beti kualitate moralak azpimarratzen dituzte: arraza **ariarraren** kualitate moral olinpikoak, arraza semitaren kualitate moral edentsuak. Joxe Azurmendi

Arraza zuri **ariarraren** gehiagotasun naturalaren tesia. Joxe Azurmendi

Komunitate erromatar eta bisigotikoen arteko leizea gainditu bezain laster bigarrenaren konbertsioarekin - **ariotar** izatetik kristau katoliko izatera igarotzearekin, K.o. Iñaki Mendiguren

Ariotar ostrogodoen buruzagi amalungoek eta xii daylamie-en buaihitar buruzagiek beren konkistetarako eskubidea bilatu zuten. Iñaki Mendiguren

Gotoen **ariotar** kristautasun heretikoa. Iñaki Mendiguren

2 *ariar arraza*

1934an alde egin zuen Alemaniatik, baina amak, erakutsia baitzuen jada bere ernetasuna Hirugarren Reich hartan **ariar arrazakoak** ez zirenak mehatxatzen zituzten arriskuen aurrean, uko egin zion setati berak ere ihes egiteko aukerari. Oskar Arana

Neurekoikeriaz ari naiz: sudurluzeok susmagarriago izango gara beti **ariar arrazako** poxpolinak baino. Joxerra Garzia

3 *ariar poni* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Tartariar ponia, edo **ariar poni**, egun desagertutako antzinako Eurasiako zaldi arraza bat da. Tamainagatik eta gainerako ezaugarriengatik, ponien sailkapen taldean sailkatzen da. ETC-entziklopedia

---

ariarazi, ariaraz(i), ariarazten du *ad* aritzera behartu.

Horien artean, lehen mustraka elibatetan, bertsetak emaiten eta taulada gainen ibilten bedera bedera **ariarazi** ondoan, Jean-Fabien Lexardoi errejentak kargüak eman zütüan igaran igantean. Herria

Atearen barnealdeko hesia egunez zabalik egoiten baita, grillari lotu eta dilindan emaiten naiz, leihatilako sarean baino errazago da, eta tiraka hasten naiz, ene besoei lanean **ariaraziz**. Filipe Bidart

Irakurketak alkantzu metafisikoa dauka: irakurtzea ez da irakurriaz handiko zerbaitez mintzo zaizun zerbaitez informatzea, irakurria bera **ariaraztea** baizik, hots, errealitatea eta irakurketa bat egitea. Xabier Amuriza

Herri zonbaitetan urte güzian kantan **ariarazten** dütüen jente gehitüak badira, hala nola Altzürükün eta Larrainen. Herria

Ala sobera **ariarazten** haute lanean? Janbattitt Dirassar

Urteak jin urteak joan, estrategiak ez ziren moldez kanbiatzen: jendeak biltzen zituzten, elkarrekin lanean **ariarazten** bestela bata besteari ausikika zebiltzan beti, damurik gabeko etzirako proiektuen diruztatze oparoak hitz emanez. Itxaro Borda

---

ariarzale *izond* ariar arrazakoen aldekoa edo zalea.

Aranzadi-ren testua, kritikoa arrazaren kontzeptuaz baliatzen diren nazionalismo guztiekin, baita euskaldunarekin ere, bestetik euskal herri-nortasunaren aldekoa da, euskal arraza mespretxatzen zuten autore arrazista latin edo **ariarzaleen** aurka (Chamberlain, etc.). Joxe Azurmendi

---

ariatar *izlag/iz* Ariakoa, Ariari dagokiona; Ariako biztanlea.

Hark, behin baizik ez zituen ikusiak bere ahaide arberaztarrak, Garrüzeko ferian, eta behin ere ez **ariatarrak**. Aingeru Epaltza

---

ariaz *adlag* kariaz, dela eta.

Horien guzien **ariaz** eta bere urrikalmendu neurri gabeaz, atera gaitu sobranioko kalterik gabe, bertze asko herri arras galdu dituen uholde gaitz hortarik.Tailandian, drogakien **ariaz** hil dira mila lagun hurbil orotara ilabete batez. Xipri Arbelbide

Eta geroztik ere, behin baino gehiagotan, Bretaniako asko jaun argituekin hitz egin dut gauza horren **ariaz**. Xipri Arbelbide

Gaineratzen zuen ezen berrirakurriak zituela, gutunaren **ariaz**, garai hari buruzko bere oharrak. Juan Garzia

Akusatzen dute bai Frantziak eta bai Espainiak bi serora frantses, hango jende behardunen alde bermatzen zirenak hilarazi zituela, eta denbora berean beren etxeko bat diktatura horren **ariaz** galdua zuten familien laguntzaile suharrak baitziren. Herria

---

aribide *iz* ahalmena.

Oso ganadu gorri gutxi haz liteke; beti daude laborantzarako aski ganadu ez izateko arriskuan; idiak ez dira gehiegi ugaltzen .35; gaixotasun gehiegik jotzen ditu: haiek babestuko dituen erlijio-legea oso komenigarria da, beraz, herrialde hartako **aribiderako**. Iñaki Iñurrieta

---

aribidean *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi) adlag* gauzatzeko edo bururatzeko bidean.

Aribidean dagoen jardun diskurtsiboa izanik, posible da bertan esku hartzea eta hura esanahi berriez hornitzea. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, harreman kapitalisten hedapena ez da iraganeko kontua, baizik eta **aribidean** dagoen prozesu bat, oraindik ere odola eta garra eskatzen dituena eta oraindik ere erresistentzia handia eragiten duena; eta erresistentzia horrek galga jartzen dio, ezbairik gabe, lurreko produkzio-molde guztiak subsumitu nahi dituen eta soldatapeko lana zabaldu gura duen kapitalismoari. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, harreman kapitalisten hedapena ez da iraganeko kontua, baizik eta **aribidean** dagoen prozesu bat, oraindik ere odola eta garra eskatzen dituena eta oraindik ere erresistentzia handia eragiten duena; eta erresistentzia horrek galga jartzen dio, ezbairik gabe, lurreko produkzio-molde guztiak subsumitu nahi dituen eta soldatapeko lana zabaldu gura duen kapitalismoari. ETC-literatura, saiakera

Biak ala biak **aribidean** eratu ziren. ETC-prentsa

Zer ikusiko dugu? Bada, abiapuntu argirik baino, **aribidean** sortutako lanak. ETC-prentsa

Berriro ere, "hainbeste hamarkadak utzitako ondorioak gainditzeko" eta "hitza desarmatzeko" borondatea berretsi dute sindikatuek, eta "**aribidean** dauden elkarrizketa bideak sakontzeko" konpromisoa ere azaldu dute. ETC-prentsa

Aribidean dauden administrazio-prozeduren izapideak egin, eta prozedura horiek ebatziko dira prozedura hasi zenean indarrean zegoen arautegiaren arabera, salbu eta interesdunak lege hau aplikatzea eskatzen duenean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Finkaren eskuratzailea, Hipoteka Legearen 34. artikuluak babestuta egon arren, errentatzailearen eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da, eta errespetatu beharko du **aribidean** dagoen kontratuaren edo isilbidezko luzapenaren gutxieneko iraupenetik geratzen den epea. ETC-zientzia, zuzenbidea

2) **Aribidean** dagoen urtean sortutako alokairuen ordainketari buruz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Komunitatean oinarritutako errehabilitazio-ekintza bat kanpotik hasten den bakoitzean, komunitateari dagokio erabakitzea ea programa hori **aribidean** den komunitate-garapenaren ekintzetako bat izango den. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kapitulu honetan azterturiko hiru hamarraldietan, funtsezko aldaketak gertatu dira munduko ekonomiaren **aribidean**, eta galdera asko utzi dituzte; batzuk, eztabaidagai dira han eta hemen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Errepublika bat barbaroa bada ere, nahitaez sortzen du legea, horretan ezin du huts egin bere berezko **aribidean**, are gizadiak beste zientzia batzuetan aurrerapen handiak egin baino lehen. ETC-zientzia, zuzenbidea

W3Ck egindako zirriborroa **aribidean** dago, eta Chrome eta Firefox arakatzaileek inplementazio aurreratuak eskaintzen dituzte. ETC-entziklopedia

---

aribideko *(corpusean ez dago; ETCn **49** agerraldi) izlag* gauzatzeko edo bururatzeko bidean dena.

Izenburu hori du **aribideko** lanak. ETC-literatura, saiakera

Euroliga eraberrituak hirugarren sasoia du **aribideko** hau. ETC-prentsa

Parte hartzeko eskabideak ez du **aribideko** prozedura etengo. ETC-zientzia, zuzenbidea

Errege Dekretua, Kode Zibila indarrean jartzeko hirurogei eguneko epea luzatu duena, **aribideko** urteko maiatzaren bata arte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aribideko prozedurei aplikatu beharreko arautegia ETC-zientzia, zuzenbidea

Erosleak eskubide hori erabiltzen badu, errentariak eska diezaioke **aribideko** nekazaritza-urteari dagokion uztaren fruituak jasotzen uztea; eta saltzaileari, errentariak izan dituen kalte-galeren ordaina ematea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondore horietarako, portu-sistemaren errentagarritasuna kalkulatuko da ekitaldiko zerga ondorengo emaitza zatituta ekitaldiko batez besteko ibilgetu garbiarekin, **aribideko** ibilgetua bazter utzita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erosleak eskubide hori erabiltzen badu, errentariak eska diezaioke **aribideko** nekazaritza-urteari dagokion uztaren fruituak jasotzen uztea; eta saltzaileari, errentariak izan dituen kalte-galeren ordaina ematea. ETC-entziklopedia

---

ariel *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* antzinako zerga.

Zein zaldun ibiltarik inoiz ordaindu ote du zerga, zergera, **ariel**, legar, bide-sari, abari-zor, akura, edo petxarik? ETC-literatura, saiakera

Orobat, halako erakundeek salbuetsita izango dituzte mota guztietako zerga, tasa eta **arielak**, helburu hori lortzeko egin beharreko eskualdaketa, agiri edota jardunak karga ditzaketenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eibarko Udalaren propio eta **arielen** errentak hain omen ziren urriak, urteroko gastu arruntak ordaintzeko ere ozta-ozta biltzen zela azaldu ondoren, aleen erosketak eragiten zuen defizita udal-propioetatik ordaintzeak nortzuk kaltetzen zituen argitzen zuen udalaren gutunak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

ariera *iz* aritzea, aritzeko era.

Ongi pentsatuz gero, azken honen jarduna edo **ariera** askozaz ere garbiagoa da, soilagoa, biluziagoa eta zintzoagoa, mendi-jonkiarena baino. Iñaki Segurola

Kaligrafia txukunez kopiatuko zituen, noski, eta **ariera** horri esker jabetuko zen kopiatzen zituen hitzetan zetzan esanahiaz, zentzuaz, jakituriaz. Iñaki Iñurrieta

Euskalgintzaren jardueraren pizgarri eta sustagarri seinalatuena eta haren beharra nabarmenenik erakusten duena, euskararen etsai eta erasotzaileen lan gaiztoa da: haien etengabeko **arierak** eusten dio hobekienik Euskalgintzaren izateari eta funtsari. Iñaki Segurola

Santo Tomas hurbiltzen da misteriora dioenean, irudi hau ahalmenen **arieran** besterik ez dela perfekziozkoa. Joan Mari Lekuona

Bere diskurtsoaren **arieran** Ortega-k nahitaez horixe pentsarazten dio irakurleari, haren jarraian bera horrela mintzo baita. Joxe Azurmendi

Banaka batzuk Klararen mahaira inguratzen ziren, eta Gabin bezala jartzen neskaren **arierari** begira. Iñaki Iñurrieta

´Zu´ horrek irakurlea entzule egiten du, ez ikusle: naturaz eta beronen **arieraz** mintzatzeak irakurlea obratik at utziko zukeen, beste batzuek (autoreak) ziotenarekin konformatu beharko zuelarik. Xabier Amuriza

---

aries *iz* Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren lehen zeinua; latinez 'aharia' esan nahi du.

Eguzkia **Aries** zeinuan sartzen denean eta zeinu horren zortziren bat zeharkatu duenean, udaberriko ekinokzioa markatzen du. Santiago Iruretagoiena

-Ariesen egokitzen zaion bi egun pasatxo horietan eragina buruan, garunean, begi-sudurretan dizu. Pello Zabala

Aries eta Andromedaren artean dagoen konstelazio bat ere agertu zitzaion, baina ez zion kasu handirik egin. Joxemari Urteaga

Aries guztiak pertsona indartsu eta dinamikoak izaten dira. Xabier Paya

arieta *iz* musikan, aria laburra.

Amodiozko negar kantuak ez dira errezitaldi derrigortuetan, edo **arieta** handietan baizik aditu behar. Jon Muñoz

Martin y Solerren Barrokoko operetako zatietan, sopranoak aparteko egokiera egin zion garaiko kantu-estiloari: bolumen erdiko ahotsarekin azentuak jo zituen, koloraturak, adierazkortasuna, grazia; eta egile berberaren Sei **arietan** gaineratu behar zaio dinamikaren aldaketa neurtu-neurtuak. Berria - Kultura

---

ariete *iz* harresiak eraisteko gerra makina, muturrean metalezko pieza bat duen habe handi eta sendo batek osatua.

Ariete horrek burdina gogorrezkoa zuen ezproia, itsasontziek izaten dutenaren antzekoa. Santiago Iruretagoiena

Makina horretan tornuan oso ondo bukatutako arrabol bat jartzen zen, eta haren gainean **arietea** jartzen zen, soka bidez aurrera eta atzera erabiliz efektu guztiz suntsigarriak eragiten zituena. Santiago Iruretagoiena

Armazoi horretan tornuan egindako bi ardatz jartzen ziren, eta ardatz horietan **arieteari** eusteko sokak lotzen ziren. Santiago Iruretagoiena

Leku horretan, gainera, **arietearen** makina jartzen zen, grezieraz *criodocis* deitzen dena. Santiago Iruretagoiena

Landan barrena makina handiak zebiltzan arrastaka; eta erdian **ariete** erraldoi bat aurrerantz zihoan, kate boteretsuetatik kulunka, ehun oin luzeko zuhaitz baten gisara. Agustin Otsoa

Ariete erraldoiekin ekiteko ateen kontra. Jon Alonso

Ariete gurpilduna ere erabiltzen zuen, eta idatzita utzi zituen horri buruzko kalkuluak. Santiago Iruretagoiena

Erasoko **arietea** nola asmatu zen gogoratuko da. Santiago Iruretagoiena

Neskatxa gazteari lehen lorea eramaten dion maitale samurraren moduan barneratu beharrean, adarkada bizi batez sartu baitzidan taketa, antzinako **ariete** erasotzaile baten gisan. Aitor Arana

Mugitzeko oso nagia zelako, **ariete**-dortoka deitzen hasi zitzaizkion. Santiago Iruretagoiena

Ariete-dortoka bat ere harresira bultzaka hurbiltzen ari zenean, soka bat bota zioten begizta bat eginda, eta **arietea** harrapatuz, danbor baten bitartez dibidietak biraraziz eta **arietearen** burua airean esekiz, ez zioten utzi harresia ukitzen. Santiago Iruretagoiena

---

ariketa *(ETCn **25.101** agerraldi)* **1** *iz* aritzea; zerbaitetan eta eskuarki ikasten diren gaietan trebatzeko egiten den jarduna.

Kontzientzia, gehienetan, **ariketa** -'actus'-en katea izan ohi da, ez 'actus' bakar bat-. Jenaro Garate

Badaki ez ditzakeela berriz bi oren bete istorio zaharrekin eta ohiko **ariketak** eta azalpenak prestatu behar dituela. Eneko Bidegain

Ariketa egiten denean ere berdintsu mantentzen da biriketako oxigeno kantitatea: arnasa sakonduz eta bizkortuz erantzuten zaio muskuluek egoera horretan duten oxigeno-eskakizun handiagoari. Irene Aldasoro

Egunero, kafetegi baterat joaiten nintzen, **ariketak** egiterat. Herria

Zahar-etxe eta jubilatu-egoitzetan ohikoak dira memoriak lan egin dezan prestatzen dituzten ikastaro eta **ariketak**. Andoni Egaña

Ariketak berotu egiten du gorputza. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beste **ariketetako** kontakizun berbera "e" erabili gabe egina dago hor. Xabier Olarra

Biharamunean haiekin batean ari nintzen gazteluko patioan, ezpata, pika eta pistolarekin **ariketetan**. Aingeru Epaltza

Bizitza ulertzeko **ariketak** dira batzuk; gerta daitezkeen gaitzen aurrean babestekoak, besteak. Pablo Sastre

Donald Rumsfeld Defentsa idazkariak adierazi zion Senatuko batzorde bati Pentagonoko abokatuek galdeketetan eta kartzelaldian loa galaraztea, elikaduraren inguruko manipulazioa eta "estresa eragiteko **ariketak**" zilegizko metodoak zirela argi eta garbi adierazi zutela. Berria - Mundua

Etikotasunaren ideia jatorrak onarpenaren eta mirespenaren objektuak dira, baina ez intentzioaren eta **ariketaren** eragileak, ez baitute betetzen arrazoizko zerizan bakoitza berez eta arrazoimen hutsa beraren bidez a priori determinatzen duen eta beharrezkoa den helburu osoa. Ibon Uribarri

Prestamen-otoitza Jainko gure Jaunari grazia eskatzea da, ene asmo, egintza eta **ariketa** guztiak Jainko handiaren zerbitzurako eta gorespenerako garbiro zuzen daitezen. Patxi Altuna

Ariketa gehiegi ez da ona pertsonarentzat, eta gutxiago neskentzat. Koro Navarro

Orain hemen bakarrik naizela, eta ezagunak gogoan ditudala, iduritzen zait idazkera-**ariketaren** barnean eta enpatiaren bidez argiago agertzen zaizkidala adiskide eta hurbilak. Piarres Aintziart

2 (izenondoekin)

Askatzaileak izateaz gain, sasoian egoteko **ariketa** onak ere badira, oraingoz, behintzat. Ana Urkiza

Maitasuna diren hautamena eta ezagumena dira gizakiaren **ariketarik** arruntenak. Jenaro Garate

Izotza apurtu behar du, eta **ariketa** goiztiar horrek sutakoa baino sanoagoa den berotasuna zabaldu dio gorputz osoan. Itziar Otegi

Esaera erdi ludiko erdi pedagogiko hauek fonemak ondo bereizteko **ariketa** atseginak dira umeentzat. Iñaki Arranz

Orain arte neuk itzuli ditut neure lanak gaztelaniara, eta **ariketa** aberasgarria gertatu zait. Ana Urkiza

Ariketa osasungarria dugu, bada, nork bere burua ezagutzen laguntzen eta izaera sendotzen duena. Juan Garzia

Berak badaki ibiltzea, **ariketa** fisikoa egitea komeni zaiola, baina alferrik. Iñaki Iñurrieta

Bero egin zein hotz egon, ordu erdi luzez aritzen nintzen flexioak eta **ariketa** fisikoak egiten, batzuetan gehiago ere bai, harik eta indarrak eten eta elastikoa eta galtzen gerribueltakoa guztiz izerditzen nituen arte. Anjel Lertxundi

Aske zenean, bizipozez eta kemenez ezinago beterik sentitzen zen goizean, lo sakonaren eta **ariketa** fisikoen ondoren, eta orain une horretantxe agertzen zen beldur ezezagun eta zorrotz hori. Jose Morales

Hizketa-hotsen ekoizpena biriketan hasi eta ezpain- edo sudur-irtenunean bukatzen den **ariketa** anatomikoa da. Lourdes Oñederra

Miragarria zuen oroimena, eta **ariketa** mnemoteknikoen bidez lantzen zuen. Jon Muñoz

Segurua da ez diola Raimundo Silvari honek nahiko lukeen bezala erantzungo, galdera egiteko ideia eduki baitu pasabidetik barna zetorrela, Costarekin eduki duen duelo dialektikoak lagundurik apika, horiexek dira **ariketa** gimnastiko intelektualaren abantailak. Jon Alonso

Oso erraza baita, halako **ariketa** zientifikoetan sartuz gero, linguistikatik soziologiara pasatzea. Joxemari Iturralde

Eskularruak kentzea ez zait egiazki **ariketa** neketsua suertatzen, hatz luze eta politak ditut. Harkaitz Cano

Odola kontzentratuagoa bilakatzen bada -esate baterako, **ariketa** gogor bat egin ondoren ura izerdian galtzean-, seinale elektriko bat sortzen dute zelula kontrolatzaileek. Irene Aldasoro

Barrurantz negar egitea bezain **ariketa** zaila da hori. Harkaitz Cano

Saltoka aritu beharrean dago, **ariketa** zail samarra bada ere. Iñaki Arranz

Elkarri bidaliriko gutunak desio **ariketa** hutsalak baino ez ziren izan, batzuetan besteetan baino utopikoagoak. Joxemari Iturralde

Silaba bakarreko hitzak elkarren segidan paratzea da **ariketarik** erabiliena: [...]. Iñaki Arranz

Lasaigarria da **ariketa**. Eider Rodriguez

3 (izenlagunekin)

Eguneko **ariketak** nekaturik, sakon egin zuen lo. Jon Alonso

Maitasunezko arteari dagozkion gaueko **ariketetan** eralgitzen den denbora. Jon Alonso

Bukatu da, bada, asun-ura, bukatu dira goizeroko **ariketak**, bukatu da mutur joka ibiltzea eskolan Agustin Kirrimarro deitzen ziotenekin. Anjel Lertxundi

Ingeleseko **ariketak** egiten ari zen, eta erredakziotxo bat egin behar zuen gero. Josu Zabaleta

Ez dago alferrikako **ariketak** egiteko prest, produktu ezezaguna ez baitu gustuko orain ere. Edorta Agirre

"Errealismozko **ariketa** batek ez zidak behingoagatik kalterik egingo", esan dut neure artean. Iñaki Segurola

Arestiren hori jolas bat izan zen, ironiazko **ariketa** bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Bertsoa eraikitzearen ikuspegitik ez du zerikusirik bertsogintzako gainerako **ariketekin**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Alderantzizko **ariketak** ere erruz aurkitzen ditugu ahoz nahiz idatziz. Iñaki Arranz

Idaztea, ohartu ere egin gabe, utzi ezinezko **ariketa** bilakatu zaio; bizi-espazio, cronopio handiak erranen zukeen bezala. Jose Angel Irigaray

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tratamendu esperimentalak **ariketa** sortak ziren kasu gehienetan. Berria - Harian

Behin batean, Julio nire **ariketa**-koadernoa zuzentzen ari zelarik, han bururatu zaio orrialdeak pasatzen hastea, zer topatuko. Juan Kruz Igerabide

Hala ere, gaur eskolako **ariketa** kaier horietako bat dakar. Edorta Jimenez

Nire **ariketa** liburuak, poemez beteak, irakurtzen aritu nintzen. Koro Navarro

Antolatzailea, bertsolariei lana neurri bertsuan eragingo zien aldetik, gai desberdinak eta **ariketa**-modu desberdinak proposatuz. Andoni Egaña

Ariketa modu honetan, gai-jartzaileak hasiko du bertsoa, puntua jarriz, eta bertsolariak amaitu egin beharko du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Elkarrekiko teman, ahozkotasunaren bere berezko **ariketa**-modu horretan, bi bertsolarien arteko funtzio-banaketak garrantzi handia du. Andoni Egaña

Ibilbide osoa egiten duen ikasleak 90 unitate landuko ditu, beste hainbeste doinu, 140 bertsolari baino gehiago ikusiko ditu, **ariketa** mota guztiak. Berria - Kultura

Ariketa mota horri emana bainintzaion jarraikian aspalditik, Aljeriatik etxera itzuli bezain laster. Piarres Aintziart

Beraienak gal ez zitezen, oroimena lantzeko **ariketa** mordoa zeukatean prestatua. Jon Muñoz

Erakusten zien 'Camp Aguinaldo' armadaren **ariketa** alorra. Ramuntxo Etxeberri

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurreko laboratorioa, zinkaren kontuarena, haur-**ariketa** begitantzen zitzaigun orain, umetan sukaldeketara jolastean nola. Juan Garzia

Ez nituen jada piano-hotsak eta hatz-**ariketak** entzuten. Anjel Lertxundi

Buru-**ariketa** interesgarriak eragin zituzten mekanikaren ideiek, baina osagileei ez zitzaizkien oso baliagarriak gertatu beren lanean. Irene Aldasoro

Gorputz-**ariketek** ezer gutxirako balio dute; jainkozaletasunak, berriz, guztirako balio du. Elizen arteko biblia

Honelako kasuetan toki itzaltsua aukeratzen da, giroa bero baita eta gorputz-**ariketak** ere berotzen baitu, txabola batzuk eraikitzen dira egur-ziriez, adarrezko estalkiekin. Jon Alonso

Gauean, ezin nuen begirik bildu, arnas **ariketak** egin eta egin arituta ere. Juan Kruz Igerabide

Anai Bernardori erasoko dioten tentaldi guztiak, bertute-**ariketa** eta merituen koroa gerta daitezen baimendu baititu Jainkoak. Askoren artean

Aplikazio praktikorik gabe, eskola-**ariketa** hutsa izatera behartua, erretorikak baztertuz joan zen inventioaren eta, neurri txikiagoan, dispositioaren alorretako alderdiak eta garrantzia formulazioen distirari baino ematen ez zitzaion artifizio bihurtu zen denboraren joanean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Lasaialdi eta osagarria, lasaitze **ariketak**. Herria

Horixe esaten aritzen natzaio beti honako rosakruztar1 honi: egiteko soin-**ariketa**. Irene Aldasoro

Horregatik, familia honetako kideak soinketa **ariketak** egiten ari dira, itxuraz, denbora guztian, hanka ostea edo garondoa ikusi nahiz. Josu Zabaleta

Yoga-**ariketa** hinduak egiten dituela, barauak egiten dituela, buruz ikasten duela teosofia. Juan Kruz Igerabide

Han hilabete igaro zuen eta ospitaletik irten ondoren, Cyclops mutualitatean errehabilitazio **ariketak** hasi zituen.Asmoa ez da erredakzio **ariketa** hutsa egitea. Berria - Ekonomia

Antz izugarria izanik ere, ordea, memoria **ariketa** soil baino gehiago nostalgia **ariketa** zirela esan zitekeen, sorkuntza lana alegia. Joxean Agirre

Estilo **ariketa** legez, zoragarria begitantzen zait Muruarena, kazetaritza fakultateetan nahitaez erakutsi beharrekoa. Iñigo Aranbarri

Gorriz jantzitako tximu txiki bat zekarrela agertu zen, akrobazia-**ariketa** batzuk egitera behartu zuena. Koro Navarro

Txikitako kaligrafia **ariketa** haiek guztiak, eskolan, eta letra biribil txukun hura nola joan zaion eskastuz. Iñaki Iñurrieta

Hitz pilotak zenbat eta bira gehiago eman, orduan eta meritu gehiago dauka hizkuntz **ariketa** honek. Iñaki Arranz

Adibide honetan, sinonimo **ariketetan** trebatu den euskaldun berri bat eta alfabetatu gabeko lapur bat hasi dira hizketan: [...]. Iñaki Arranz

Orain lastertasun **ariketak** hasi gara egiten. Josu Zabaleta

Tiro-**ariketak** egiten hasi beharko nuela. Iban Zaldua

Taldearen defentsa antolatu zuen, eta tiro-**ariketa** zehatz-mehatzak eginarazi (zeinetan modua egin zuen munizioen zati handi bat gasta zedin). Juan Garzia

Kontzientziaren eta kanpoko begien lasaitze-**ariketak** eginez hasiko gara. Iñaki Mendiguren

Jarri nauk dobleari begira, behatze **ariketan**, eta ez diat gehiago gogoratzen. Iñaki Iñurrieta

Ahoskatze **ariketak** ditugu, esate bateko, honako hitz pare hauek: [...]. Iñaki Arranz

Baliteke maitatze **ariketa** hori moztuta bezala geratzea aldi batzuetan, adibidez hautaketa egin ezinean. Jenaro Garate

6 *ariketa fisiko*

Baina gaizki hartzen zuen eta bakarrik gelditzen zen etxean, **ariketa fisikoen** egiteko edo irakurtzeko. Ramuntxo Etxeberri

Isaak, nekaturik ordurako, **ariketa fisikoagatik** bainoago taberna barruan pasarazi zioten estuasunagatik, besaulki batean eseri zen, Almaren esku bigun hezearen laguntzaz. Felipe Juaristi

Aldiro haren parean gelditu eta **ariketa fisikoak** egin dituzte. Koldo Izagirre

Korrika, salto edo beste edozein **ariketa fisiko** egitean, erregai (glukogeno) gehiago erabiltzen dugu eta baita erregai hori erretzeko oxigeno (aire) gehiago ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ibilaldia ez baita **ariketa fisiko** hutsa, gazteek ezagutu behar lukete gure kultura, artea, historia... Xabier Mendiguren Elizegi

Baina bertan ez dago ezer ere, arbolak, belarra, maldak, zomorroak, behi kakak... eta gainera nekatu egiten zara, eta **ariketa fisikoa** egitea nire erlijioaren kontrakoa da, badakizu? Sonia Gonzalez

Harriturik gelditu zen gizona ustekabeko sendaketaren bizkortasunaz, eta hain bat-batean gertaturiko sendaketa benetakoa zen egiaztatzeko hainbat **ariketa fisiko** egiten hasi zen. Askoren artean

Automatikoki, **ariketa fisiko** baten bidez, burua gorputzarekiko konexiorik gabe utzi zuen. Unai Iturriaga

Nire lagunak pozik zeuden, ordea, kanpai-joaldi bat egin eta, horrela, **ariketa fisikoa** egiten baitzuten. Pello Lizarralde

Aske zenean, bizipozez eta kemenez ezinago beterik sentitzen zen goizean, lo sakonaren eta **ariketa fisikoen** ondoren, eta orain une horretantxe agertzen zen beldur ezezagun eta zorrotz hori. Jose Morales

Ez egin siestarik, bazkalondoan ez edan kaferik, ez txokolaterik, ez te beltzik, ez kokakolarik, ez egin **ariketa fisikorik** oheratzeko orduan, ordu berean iratzarri egunero, eta ordu berean loak hartu gauero. Joseba Sarrionandia

Diziplina gutxieneko bat ezarriko dio bere buruari: ibiltokiko promenadetan huts ez egitea, ahal izanez gero, paseoak eta **ariketa fisikoak** uztartzea... Filipe Bidart

7 ***zoruko ariketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Zoruko ariketa gimnastika artistikoaren aparatu edo frogetako bat da, eta emakume eta gizonezkoek parte hartzen dure frogan. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ariketa asko (3); **ariketa bat** (27); **ariketa batean** (5); **ariketa batek** (5); **ariketa baten** (4); **ariketa batzuk egin** (3); **ariketa bera** (3); **ariketa bereziak** (3); **ariketa da** (8); **ariketa egin** (6); **ariketa egiteko** (3); **ariketa egiten** (4); **ariketa erraza** (3); **ariketa fisiko** (16); **ariketa fisikoa egitea** (6); **ariketa fisikoa egiten** (4); **ariketa fisikoak egiteko** (3); **ariketa fisikoaren** (4); **ariketa fisikoen** (3); **ariketa fisikorik egiten** (3); **ariketa fisikorik ez** (3); **ariketa gisa** (10); **ariketa gogor bat** (3); **ariketa gutxi** (3); **ariketa haiek** (3); **ariketa hau** (3); **ariketa hauek** (3); **ariketa hauen** (3); **ariketa honek** (6); **ariketa honetan** (7); **ariketa hori** (11); **ariketa horiek** (5); **ariketa horietan** (3); **ariketa horixe** (3); **ariketa horrek** (8); **ariketa horren** (3); **ariketa horretan** (11); **ariketa hura** (4); **ariketa hutsa** (6); **ariketa hutsala** (3); **ariketa intelektual** (3); **ariketa izan** (3); **ariketa luzeak** (3); **ariketa militarrak egiten** (3); **ariketa modu** (3); **ariketa moduan** (7); **ariketa ona** (6); **ariketa orotan** (3); **ariketa osasungarria** (3); **ariketa praktiko** (3); **ariketa**

praktikoak (4); **ariketa xume** (4); **ariketa zail** (3); **baitzuen ariketa** (3); **bere ariketa** (7); **beroketa ariketa** (3); **beste ariketa** (5); **dira ariketa** (4); **du ariketa** (3); **duen ariketa** (6); **dut ariketa** (3); **dute ariketa** (5); **edo ariketa** (5); **edozein ariketa** (3); **egin ariketa** (4); **egindako ariketa** (4); **eginiko ariketa** (3); **egiten den ariketa** (3); **ere ariketa** (4); **estilo ariketa** (5); **ez da ariketa** (5); **gorputz ariketa** (4); **gure ariketa** (3); **inguruko ariketa** (3); **lucasen ariketa** (8); **publizitate ariketa** (3); **txikiko ariketa** (3); **zen ariketa** (4)

ariketak dira (6); **ariketak egin ostean** (3); **ariketak egin zituen** (3); **ariketak eginarazten** (3); **ariketak egingo dituzte** (3); **ariketak egitea** (5); **ariketak egiteko** (11); **ariketak egiten ari** (11); **ariketak egiten dituzte** (3); **ariketak egiten hasi** (3); **ariketak egitera** (5); **ariketak ere** (5); **arnas ariketak** (4); **beroketa ariketak** (12); **berotze ariketak egiten** (4); **buru ariketak** (3); **errehabilitazio ariketak** (3); **gorputz ariketak** (3); **lantzeko ariketak** (6); **nituen ariketak** (3); **ohiko ariketak** (4); **queneauren estilo ariketak** (3)

ariketarekin batera (3)

---

ariketatxo *iz adkor* ariketa xumea.

Ariketatxo hori, esan ohi zuen, apartekoa zen ohetik jaikitzean; odolaren zirkulazioa bizkortzen zuen, lozorroturik egoten baitzen loarengatik, burmuineko haizeak uxatzen zituen eta txegosbideak prestatzen. Josu Zabaleta

---

arilari *izond adkor* aritzen dena.

'Arilaria' da, ase ezinik. Jenaro Garate

---

arilo *(corpusean ez dago; ETCn **37** agerraldi)* **1** *iz* landare hazi batzuen kanpoko estalkia.

Haziaren bidetik: fruituak **arilo** gorri lirdingatsu ikusgarria du, barruan, erdi bixtan erdi ezkutuan, hazi beltx borobil gogortxo bat duena. ETC-prentsa

Ale emeak fruituak ekoizten dituen bakarra da eta berez, sasi-fruitu edo baia modutzat hartzen dira; hazi bakarrekoak dira eta **arilo** mamitsu batez inguratuta agertzen da, kolore gorri bizia eta zapore desatsegina duena. ETC-entziklopedia

Eraztun mamitsu gorri bizi batez (**ariloa**) inguratutako haziak dira fruituak. ETC-entziklopedia

2 *iz* hidrokarburo aromatiko bati hidrogeno bat kentzean sortzen den erradikala.

Aminak amoniakoaren deribatuak dira, hidrogeno atomo bat edo gehiago ordezko batekin (alkilo batekin edo **arilo** batekin, esaterako) ordeztuta dutenak. ETC-entziklopedia

3 ***arilo talde*** *(corpusean ez dago; ETCn **37** agerraldi)*

Arenoa ordezkatzaile gisa erabiltzen bada, **arilo talde** deritzo (Ar laburtuta). ETC-zientzia, zuzenbidea

Amino taldeak amoniakoaren deribatuak dira. Aminak amoniakoaren deribatuak dira, non protoi bat edo gehiago alkilo edo **arilo taldeengatik** ordezkatzen diren. ETC-entziklopedia

Iminak errazago sortzen dira karbono-nitrogeno lotura bikoitzaren eta ordezkatzaile baten (normalean, **Arilo taldeak**) arteko konjokaketa dagoenean. ETC-entziklopedia

---

arima *(ETCn **22.793** agerrald; orobat **anima** g.er.)* **1** *iz* gizakiaren zati materiagabea, hainbat erlijiotan hilezkortzat hartzen dena; pertsona hila; aldartea.

Arima du jokoan Faust doktoreak, eta ongi pentsatu beharra dauka zer mugitu, galdu nahi ez badu. Imanol Zurutuza

Bera, Sam, Eraztunaren eramailea izan zen, bolada laburrean izan bazen ere, baina uler zezakeen, hari esker, Gollum gizajoaren agonia, gorputzez eta **arimaz** Eraztunaren esklabo bihurturik, unaturik, bizitza osoan berriro bakerik eta sosegurik ezagutzeko gai izan gabe. Agustin Otsoa

Une hartan, hildakoen **arimak** agertu ziren Erebotik: emazteak, ezkongabeak, agureak, dontzeila samurrak, borrokan hildakoak...; taldeka zebiltzan zulo inguruan; haien lantuak izuikara ematen zigun. Juan Kruz Igerabide

Baina ari naiz baketzen, eta mendeku hartzeko esperantzak **arima** dit sosegatzen. Jon Muñoz

Zendu berriak bere bizialdian egin dituen bideak eta joan-etorri guztiak korritzen ditu haren **arimak**. Jokin Urain

Gizaki oro jaisten da bere **arimaren** sotoetara, gizaki orok du hausnarketarako gaitasuna. Anjel Lertxundi

Wanda Ford balditurik zegoen, **arima** musika kutxa bat bihurtzen zitzaiola. Gotzon Garate

Idatz iezadazu, adiskide nirea, eta bare ezazu nire **arimaren** egonezina. Ramon Etxezarreta

Arima gogortu nahi ziguk putakume horrek. Pablo Sastre

Kalparra bezala itsasten zaizu **ariman** eta ez dago ukendurik, sendabiderik edo erremediorik, hartaz oroitutakoan baretuko zaituenik. Hasier Etxeberria

Bere arimaren patxadan babesturik, bestea ahaztu zitzaion: alabatxoaren **arima**. Anton Garikano

Erabakita zetorren bere **arima** estutzen zuen arazoa agertzera, baina une egokiaren zain egon, eta azkenean Um Hamidak honela galdegin zionean gertatu zen: Patxi Zubizarreta

Pentsa daiteke kanpalekuan preso politikorik baizik ez dela, eta herrika, hizkuntzaka bilduak, bakoitzak bere **arimatik** zerbait aurkitzeko gisan. Marzel Etxehandi

Trikitilarien gurasoek, semeak soinua uzten ez bazuen, haren **arima** ez ezik etxekoena ere galduko zela iragartzen zieten gutun anonimoak jasotzen zituzten... Iñigo Aranbarri

Ur harrotuek zabaldu eta itxi ibili zituzten eskusoinuak gau osoan, giro ilun-itxiaren eta ekaitzaren erdian; musika notak bainoago, itotakoen **arimen** negar eta samin-loreak ziruditen haien zaratotsek. Pako Aristi

Bihozgabetua zirudien guztiz edo, zehatzago esateko, deabruzko makina baten bidez **arima** lapurtu baliote bezala. Aitor Arana

Berak zerbait ostu zigun, koadroetan ezkutatzen den sentipen espiritual bat, gure **arimaren** pusketa galdu bat -Rosak dudaz beteriko laku nahasi bat ikusi zuen Miriamen aurpegian. Aritz Gorrotxategi

Goseak gorputza higatzen du, baina kuraia ere, bai eta **arima**, itsusterainokoan. Marzel Etxehandi

Udan beren **arima** galtzen duten leku balneario horietarik bat gehiago. Aurelia Arkotxa

- Jakin ezazu otoitz egiten dugula zure **arimagatik**. Koldo Izagirre

"Jainkoak lagun dakiola nire **arima** gaixoari" izan omen ziren Edgar Poe gizarajoaren azken hitzak. Koro Navarro

Ezinezkoa zitzaion ziurtatzea, ordea, begiak falta baitzitzaizkion, **arima** eta gorputza batzen diren puntuak, hain zuzen ere. Joxemari Urteaga

Bedeinkatua izan dadila itzain ezezagun hura, ene pentsamenduari distira eragiteko eta, jakin gabetarik, ene **arimaren** oroitze magiko hau sortzeko ahalmena ukan duenez! Koldo Izagirre

Edo deabruari **arima** saldu diok gaztetasunaren truke eta berreskuratzeko espedizioa antolatu diguk? Aingeru Epaltza

Arrazoimen hutsak **arimaren** adigaitik abiatuta **arimaren** substantziatasuna, batasuna eta hilezkortasuna inferitzeko egiten duen saialdiak inferentzia okerren sistema bat sortzen du. Ibon Uribarri

Bat-batekotasuna prestatuz, inprobisazioa bilatuz, gorputzetik **arima** aldendu eta musika-tresnarekin jolasean arituz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Besteon hotsak esnatu zuenean, zutitu eta eskaileretan behera erori zen; lepahezurra hautsi, eta haren **arima** Hadesera jaitsi zen. Juan Kruz Igerabide

Gerra horietako batetik etorri zen William Graeme 1607. urteko gabonak inguruan, ikaratua eta eri, gorputz eta **arimaz**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gure herriko kondaira zaharretan **arima** deabruari saltzen diotenei gertatzen zaien bezala. Xabier Etxabe

Ezin dut segitu pintatzen; nire **arima** ez da lanera eta artera makurtzen; hemendik urruti hegatzen da eta ideia mingarriez elikatzen. Fernando Rey

Bakea ematen duen Jainkoak erabat bereak egin zaitzatela, eta zuen izate osoak -gorputz, **arima** eta espiritu- errugabe iraun dezala Jesu Kristo gure Jauna agertuko den egunera arte. Elizen arteko biblia

Baina bere helburua ez ei da "Ahalguztidunarentzat **arimak** irabaztea", hori ez omen da-eta beharrezkoa, Berarengandik baitatoz gure **arimak**, bere hitzetan. Urtzi Urrutikoetxea

Erruz ikaratu zen hondartzan zegoen jendea, ustez eta **arima** haien protesta bizi eta negar benetakoak zirela itsaso beltzaren arrabots artetik etengabe heltzen zitzaizkien ainuri luzeak. Pako Aristi

Orain, zientifikoki ulertzen dugu unibertsoa, eta gizakiaren **arima**, eta gainerako jakingarri guztiak. Joxerra Garzia

-Aspaldidanik geunden zure zain, errege: eta jakin ezazu ez dudala beste inor zu bezainbat maite, eta halaber inork ez zaituela nik bezainbat maite; ez gorputzez, baina bai **arimaz**. Juan Kruz Igerabide

Gogoz dakizun hori goiti beheiti aztertu, baina debaldetan, ez baita hor **arima** lohitu dizuna. Xabier Montoia

Zetorkidanerako prestatzen ari nintzen paralisi hartan babestuta, baina, egia, ez zidan deusetarako balio izan, gertaeraz jabetu nintzenean, alkandora zahar baten tarratadak pitzatu baitzidan **arima** eta kristal hautsien eztenkadek erre baitzidaten barrua. Hasier Etxeberria

Hari eman natzaio, gorputza gutxi delakoan **arima** ere eskainiz. Eider Rodriguez

Garbitu gabeko mahats ale horrek bere **arima** zerura eraman du. Xabier Paya

2 *iz* pertsona.

Ez dago **arimarik** ere inguruan. Pako Aristi

-Bai, badakik, Aian **arimarik** ez duk bizi eta, festetan denek ikusten ditek elkar. Xabier Etxabe

Txardjou hogei bat mila **arimak** defendatzen dute; eta Kata-Kurgan, Nurata, Djizah, Paikand, Karakul, Khuzar, eta beste; denen artean kasik garaitu ezina egiten dute lurraldea. Karlos Zabala

1945eko abuztuaren 6an, Enola Gay hegazkinak Little Boy izeneko 400 metroko su-olatu bat askatu zuen Hiroshimako **arimen** gainean. Fernando Morillo

Ez zen **arimarik** ere ikusten. Fernando Rey

Ezker-eskuin begiratu zuen, eta, ez baitzuen **arimarik** ere ikusi, denda baten kontra, zutika ezarri zuen nanoaren gorpua. Patxi Zubizarreta

Ez zen **arimarik** ageri inguru haietan eta herrian ere ez. Elena Touyarou

3 irud/hed

Horregatik Eligio harrobi batean hasi zen lanean, Cordovado inguruan, eta odola eta **arima** zupatzen zizkion hark. Josu Zabaleta

Oriotar irudigile eta pentsalari handiarentzat gizarajoa da bertsolariaren jarduna eta **arima** ulertzen eta estimatzen ez dituen euskalduna. Andoni Egaña

Sobietarren izpiritua bizirik dela, sobietarren garaikoen antzekoak baitira, ala errusiar **arima** bizirik delako froga? Edorta Jimenez

Urdaitegiko **arima** iduri zuen, hango argitasun bizia, idolo sendo sasoikoa; eta handik aurrera Lisa ederra baizik ez zioten deitu. Karlos Zabala

Auzo-elkarteko lehendakaria izan da behin baino gehiagotan, eta, une honetan bertan ardurarik ez duen arren, eragin handia du oraindik ere batzarretan: pertsonaia ospetsua da, auzoko festen **arima**. Iban Zaldua

Neska masail-gorri, lotsatia izan zena K-ko ekintza alemaniar guztien **arima** bihurtu da orain. Pablo Sastre

Azpitik ikusirik, paretako leihoak zeru urdin lainotsuari irekitzen ziren: elizaren **arima** agerian izan balitz bezala. Ramuntxo Etxeberri

[...] horretaz gain, kantatzeko seta izaten zuen, jai guztietan kantatzen zuen, gitarra trakets bat jotzen zuen lau akordeko erreportorio batekin, eta Stellinha Egg imitatzen zuen, eta Inezita Barroso, eta São Pauloko barrenaldeko beste abeslari folkloriko batzuk, eta mundu guztiak entzuten zion, herriaren **arimarekin** bat egiten ari zirelakoan. Karlos Zabala

4 (izenondoekin)

Baina une hartan, Taboada gatzaren erdian azaldu zelarik, gure herriko apezak damu handia zeukan gogoan, ikusten ari zenaren ezin ederragoa izan zen aurrena etorri zitzaiona, ez Jainkoari erregu egitea **arima** galduaren alde. Koldo Izagirre

Adin horretan literatura bizitzaren aurrerapen izan ohi da, bizitzen ikasteko modu bat, baina neskato haren kasuan **arima** naufragoen helduleku ere bazela pentsatu ohi nuen eta bizia salbatu zioten autore horiek gurtu egiten zituen. Joxean Agirre

[...] eta bokazioaz zuzentzailea denik ezagutzen ez den fenomenoa da, eta hala ere, badirudi frogaturik dagoela ezen, gure **arima** sekretuen alderik sekretuenean, gu, zuzentzaileok, boluptuosoak garela [...] Jon Alonso

Ez nuen une batez ere **arima** ustel bat nintzela pentsatzen. Anjel Lertxundi

Bere iritzia da - baina ez du zabaldu ohi - hizkuntzaren jatorria kantua dela, eta kantuaren jatorria giza **arima** handiegi eta huts samarra soinuz betetzeko beharrizana. Oskar Arana

Arima zaharreko jendea zen, beti mundu zaharra buruan eta berria oinetan bizi ziren, ohitzeko astirik gabe. Felipe Juaristi

Pixka bat ezagutzen zutenek, ordea, ondo zekiten irudi ahul gisako horren azpian **arima** tinkoa gordetzen zela. Fernando Morillo

Eta zaila zen ulertzea non izan ziren lehenago ilunpe kontaezin, itxuragabe, isil haiek guztiak, gauza mutuen **arima** mutu haiek. Jose Morales

Gertuko pertsona baten gaitzek eta kabitu-ezinek **arima** hautsien mediku edo psikiatra baten aurrean jarri naute bizian aurreneko aldiz, halaxe komeni omen zela-eta. Iñaki Segurola

Galerian topatu dudan ni bezalako **arima** bakarti bat. Patxi Iturritegi

Baina inongo melodiak ez zuen lehen bezala hipnotizatzen bere **arima** lehertua. Fernando Morillo

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Argazkiak badira **arima** zati kaiolatu bat, hein batean. Harkaitz Cano

Eugeni: Baina **arima**-garbitasuna... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aitortzak liburuan kontatzen digu nola geratu zen bere **arima** galera hain saminaren aurrean: Min horrek bihotza goibeldu zidan. Imanol Unzurrunzaga

Gizonaren **arima**-hondoa hunki zukeen emaztearen intziri desesperatuek eta bai zintzoaz despeditu zen. Itxaro Borda

Kontsumitzaileari sei motatako diskurtsoren bidezko mezuak igorriko zaizkio etengabe, bakerik emateke, **arima**-bazter guztiak ederki astintzeko. Edorta Agirre

Eta horrelako obrek irakurlearengan sortzen duten **arima** egoera berezi horren bila noa ni ere. Joxerra Garzia

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Edozein giza **arima** edo giza erakunderentzat hilezkortasuna mundu honetan martirioa litzateke, baita ez balitz gorputz - edo gogo-zahartasunarekin batera joango ere. Iñaki Mendiguren

Amaren antzearen horren testigantza intimoa eskaintzen zidan eta, haren gorputza eta keinuen itxura gordeaz gainera, haren talentuaren, haren gustu sendoaren, haren artista **arimaren** bizigune bihurtua zen. Joxan Elosegi

Eta, guri hori interesatzen zaigu, biek herri **arima** espainolaren inguruko kontsiderazioekin erantzuten dute. Joxe Azurmendi

Kontua zera da: ahaztu egin zaizu nik badudala beste eginkizun bat ere; hirurehun nekazari-**arimaren** jabe naiz, etxaldea egoera tamalgarrian dago eta administratzailea ergel hutsa da. Jose Morales

Hamletek almenetan nolako aita-**arimarekin** topo egin nahi duen aukeratu ahal izango balu bezala da. Iñaki Mendiguren

7 ***arima apartatuta*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***6*** *agerraldi)*

Arima apartatuta saiatu nintzen, noiznahi hondora joango nintzelakoan; eta ikusirik ezin nuela coraclea zuzenean itsasontzitik urrundu, txopa alderantz jo nuen. ETC-literatura, saiakera

Ahohandi kolpera zuzendu zen eta lau pausotarako azpian etzana zeukan, bizkar gainean, erki saihespetan joaz eta hortzak lepazamarreko mamietan sartuta, **arima apartatuta** zakur amorratuak bezalaxe. ETC-literatura, saiakera

8 ***arima argi***

Nola nahiko nukeen nik berriro sentitu kanposantuko horma ondotik igarotzean atso xaharrei aitaren eginarazten dien, edota aztikeriatan sinesten duten azkenak paduretako lurrin harrigarrietatik eta **arima-argi** iheskorretatik ihes egitera behartzen dituen larritasun haren hotzikara! Josu Zabaleta

9 ***arima-arimatik*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi)*

Torri, **arima arimatik**, zauden tokian, sekula guztian, agur eta ohore. ETC-prentsa

Gizaki hori, hain zuzen ere, bere buruarekin bat dator, eta gauza berberak **arima-arimatik** irrikatzen ditu. ETC-literatura, saiakera

10 *arima eman*

Baina hori horrela bada ere, esan beharra dago Raimundo Sarriegi dela danborradaren arima, sentimendu zibikoei **arima eman** zien gizona. Askoren artean

Animalia hark **arima eman** zuen lehen eta, orain, haragia emango zuen. Jon Maia

Arima emango nuke zure ondoan une batez egotearren. Jon Muñoz

Are gehiago: batzuek **arima ematen** dute, ez bizitza, arima baizik; bada, nik horrelakoa izan nahi dut. Jose Morales

Orain George Bushi aurre egiteko eta AEBei euren etorkizuna eta **arima emateko** gai gara», adierazi zuen. Berria - Mundua

Oroitzapenak baliatu ditu Volver bere azken lanari **arima emateko**. Berria - Kultura

Zu betikotasun osoan isilik egoteko gai bazara, orduan ni mutu egongo naiz **arima ematen** dudan arte behintzat. Koro Navarro

Gaua azken hondarretan zen; hodei horien pean, basaleinua, eneari deusen zorrik ez zion bozkarioz, ur erauntsi bizi-bizi haietara gorputz eta **arima emana** zen, estasi halako batean. Juan Garzia

11 *arima erratu* *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **arima herratu** agertzen da)*

Bada, bere materiaz bereizi den Patroklo dela, edo hildako baten **arima erratua** dela, edo sorgina dela, edo yetia dela. Bernardo Atxaga

Ezta aidean ere: **arima erratu** ttar harroputx bat baino ez baita oraino Internet. Patziku Perurena

Pontito erabat hila zela sentitu zuen gero eta indar handiagoz, eta mamu-herri batera itzulitako **arima erratu** bat zela bera. Xabier Olarra

Arima erratu bat zirudien, leihatilan bermaturik, begiak itxita. Xabier Olarra

Bihar goizean, Denez Ar Cozentzat proëlla bat eginen dugu, **arima erratu** bati zor zaion betiko bakea eskaintzearren. Itxaro Borda

Oraindik ere izan zenari atxiki nahiean dabilena, **arima erratuek** egiten duten modura. Berria - Kultura

"Ai, Garibairen **arima erratua**!", egin du biografoak, erdi txantxetan, hasperen. Anjel Lertxundi

Izutu egin da, antza, gaueko suak ezer onik ez baitio iragartzen, bretoia izanik -hala salatzen du bere doinu bortitzak-, **arima erratuen** segizioa betiko atseden eske etorria izan daitekeelako bere irudimenean. Felipe Juaristi

12 *arima eta gorputz*

Baina Estatuari ez zitzaion aski eta beste tzarkeri hazi mota bat erein zuen: "Ez uste izan Xanti eri dela, eritasuna gehienetan sendatzen ahal da, Xanti Deabruak hartua du eta norbait **arima eta gorputz** hartzen duelarik, ezin kasatua da, eta Deabruak ez du beste gogorik lurra ifernutzea baizik. Michel Oronoz

13 *arima handitasun*

Arima handitasun horrek errotik gatibatzen nau. Itxaro Borda

14 *arima herratu*

Arima herratuetan sinesten duen batek. Berria - Euskal Herria

Nik ez dakit **arima herratuek** ze itxura ote daukaten; baliteke gau-giroan basamortuko agabeek daukatenaren antzekoa izatea. Berria - Harian

Haren egun-argiko ibilerek antz gehiago zuten **arima herratu** batenak neskame batenak baino. Anjel Lertxundi

Ezkonduaren bizitza da, hain zuzen, Barojari beldur gehien ematen zion gauzaren eredu betegina eta, **arima herratuen** gisa, ihes egiten saiatu zena: bizitza ezdeusarena alegia. Josu Zabaleta

15 *arima hortzetan* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ramon koitaduak, **arima hortzetan** zuela, esan zion jaunari: ETC-literatura, saiakera

Eta medikuari hitz horiek irribarrez baina **arima hortzetan** esan bitartean, medikua, azkar porrokatua nola baitzen, berehala ohartuko zen beraren bihotza negarrez zegoela. ETC-literatura, saiakera

16 *arima joan*

Arima joaten ari zitzaiola esaten zidala begitandu zitzaidan eta, begiradari eutsi ezinik, zauriak non zituen bilatu nuen. Edorta Jimenez

Bigarrena, arima ez dela gizakia bera, nahiz haren parte nagusia den, zeren eta arimak eta gorputzak osatzen baitute gizakia, eta gorputza hiltzen delarik, **arima baitoa** zerura, gozatzera betierean edo infernura betiko. Piarres Xarriton

17 *arima salbu*

Arima salbu-ta, hemen aipa ote dezaket lehengo beharri luzearena, "nor duk aita?" galdeari ihardetsi baitzuen: "Mendiko behor ederrena nik... ama!". Herria

Etxean bazuten txakur bat, hizketan ez, baina bestela, **arima salbu**, kristauak bezalakoa zena. Gotzon Garate

18 *arimako aita* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Baldin eta nire ordez pentsatzen duen liburua badaukat, baldin eta nire kontzientzia morala ordezkatzen duen **arimako aita** badaukat, baldin eta dieta agintzen didan sendagilea badaukat, etab., ez daukat ahaleginik egiteko beharrik. ETC-literatura, saiakera

19 *arimako bake*

Arimako bakea galarazten dute. Joan Mari Lekuona

Baina bera, Kristoren eta Frantzisko apalaren egiazko ikasle zenez, beldur zen munduko ohoreak **arimako bakea** eta osasuna oztopatuko ote zion, eta egun batean alde egin zuen, eta San Frantziskorengana itzulirik, esan zion: "Aita, Bologna hirian fundazioa egina dago. Askoren artean

20 *arimen artzain*

Ez **arimen artzain**: ardien artzain, eta ez erretorika arkadikoz edo burubide bitxiz, pozik eta gustura baizik, lurraren eta belarraren amorez, eta bihotzaren joriz. Juan Garzia

21 *Arimen Egun* *(corpusean ez dago; ETCn **50** agerraldi)*

Hilen Eguna edo **Arimen Eguna** Purgatorioan dauden arimen aldeko jaia da, jatorriz paganoa, kristautasunak bereganatua. ETC-entziklopedia

Arimen Egunaren inguruan gaztaina erreak lagunartean jateko ohitura zabaldua da oso. ETC-entziklopedia

Urtero urriaren 31n munduko hainbat lekutan ospatzen den jaia da, **Arimen Eguna** euskal jaiaren antz-antzekoa. ETC-entziklopedia

Domu Santu eta **Arimen egunez** hilerrira joatea azken 60 urteetako kontua da. ETC-prentsa

Arimen Eguna ospatzeko gaztainak eta sagardoa banatuko dituzte, 19: 00etan, Osintxuko plazan. ETC-prentsa

Uda aurretik joaten naiz, eta **Arimen Egunera** arte egoten naiz. ETC-prentsa

Jakina, Eliza katolikoak ere aprobetxatu zuen abagunea, eta aste honen hasieran izan ditugu Domu Santu eta **Arimen Egunak**. ETC-prentsa

Edonola ere, konformatuko nintzateke, baldin eta asabak jaio ziren etxeko hegatzaren azpian lurperatu izan banindute, edo **arimen egunean** olio-argi bat piztuko balute nire izenean. ETC-literatura, saiakera

Baina gaur, **arimen eguna** izanik, ez zuten itxiko. ETC-literatura, saiakera

Arimen egunean, guri amak erraten zigun purgatorioko arimak bidea errautzeko, zerura joateko bidea errautzeko, argitasuna paratzen zioten horretako purgatorioko arimentzat. ETC-zientzia, zuzenbidea

22 *Arimen Gau* *(corpusean ez dago; ETCn **185** agerraldi)*

Euskal Herrira ere iritsi zen **arimen gaua**, eta gazteek hemengo ezaugarrietara ekartzea lortu zuten. ETC-prentsa

Guraso elkartetik **Arimen Gaua** prestatzen ari dira urriaren 31rako, eta boluntarioak behar dituzte. ETC-prentsa

Seigarren mailako ikasleak, iaz, **Arimen Gaueko** antzezlana egin aurretik. ETC-prentsa

Gau Beltza, **Arimen Gaua**, Halloween... izen asko dituzte gaur gaueko jaiek. ETC-prentsa

Gaur egun edonork ezagutzen du Halloween ospakizuna: Gau Beltza eta **Arimen Gaua**, ordea, ez dira hain jai entzutetsuak. ETC-prentsa

2015eko Juan San Martin beka eskuratu ostean, Halloween edo **Arimen Gauaren** ospakizunen inguruan izandako bilakaera aztertu dute Jaime Altuna (Villabona-Amasa, 1973) eta Josu Ozaita (Baliarrain, 1980) antropologoek. ETC-prentsa

Euskal Herrian aspalditik ospatu izan den jaia da Halloween: hemen, baina, **Arimen Gaua** deitu izan zaio. ETC-prentsa

Arimen gaueko ospakizuna, kalez kale, 18: 00etan. ETC-prentsa

Arimen gauean edo Domu Santu bezperan festa egiteko ohitura herri askotara zabaldu da. ETC-prentsa

Arimen gaua astelehenean da. ETC-zientzia, zuzenbidea

23 *bihotz-arima*

75 urte inguruan zela eta bizi zen lekuan bizi zela, erantsiko nuke nik, burutzera iritsi den bezalako abentura sakonean ausardia handiz murgildu eta lanari **bihotz** - **arimaz** eusteko hautua egin zuela ikusirik Berria - Kultura

tx.), eta Erreinuaren esperientziak gizakia oso-osorik hartzen duela: indar guztiak eskatzen ditu, **bihotz-arimak**, adimena eta asmoak oso-osorik. Askoren artean

Bihotz-arimak lapurtuak dizkit. Patxi Zubizarreta

Horiek denek **bihotz-arimaz** hunkitzen zuten, ondo sentiarazten, baina Brown jaunaren eskakizunak harago zihoazen, eraginkortasuna zuten helburu. Karlos Linazasoro

-Anton Beltz! - harritu zen behizain ondarrutarra, aho-begiak zabal-zabalik eta **bihotz-arimak** estu-estu eginda, amari askotan entzunak baitzizkion Arno mendi inguruetan ibiltzen omen zen Anton Beltz bidelapur beldurgarriaren balentriak. Anjel Lertxundi

Zeunerrek Ginsburg komisarioari esan zion Propaganda Batailoiaren zeregina, soldaduen adorea piztea zen bezalaxe, izan zitekeela etsaiena apaltzea, etsaien **bihotz-arimetan** etsipenaren hazia sartzea eta han, minbizia balitz bezala, zabaldu eta garatzea, gorputza ezik, gainerakoa txirtxilduz. Felipe Juaristi

[...] ederra iduritu zitzaidan jaun Marcelen deskripzionea, zeren, halatan, Kristoren gorputza jatea ez zen oreina edo oilaskoa jatea bezala -orain hanka bat, eta orain hegal bat; orain bertze hanka, eta orain bertze hegala -, baina Kristoren heriotza eta haren erresurrezionea bizitzea, **bihotz-arimetarik**...! Joan Mari Irigoien

Joanesek buruaz baietz esan zuen, **bihotz-arimaz** aitortu zuen printzesak, maiteminaren beloa ezarriz, estali egin zizkiola begiak eta itxi zentzumenak oro. Felipe Juaristi

24 *gogo-arima*

Eta poema haien letrak eta estrofak harri eta horma batzuk bezalakoak ziren, etxetxo bat eraikiz joan zirenak, non, finean, gure **gogo-arimek** ostatu hartu baitzuten. Joan Mari Irigoien

Hortik jakin dezakezu, beraz, berriro esanda, **gogo-arimen** izaera erabat hazi niminoz osatua dela, ez baitie, alde egitean, gorputzei batere pisurik kentzen. Xabier Amuriza

25 *goi arima*

Gizaki bikain hura, **goi**-arima hura, zen [...] tortura-leku hartako lehendakaria, infernu hartako maisu nagusia. Joxan Elosegi

26 *gorputz-arima*

Orduan gizonezkoak emakumeak besotik hartuta paseatzera ateratzen dira, **gorputz-arimak** egurastera, ondo jantzita, ingelesen erara gizonezkoak. Felipe Juaristi

Emakume ezkongabea eta neskatxa Jaunaren gauzez kezkatzen dira, eta beroni **gorputz-arimaz** emanak bizi dira. Elizen arteko biblia

Ez, ez du negar eginen, Jesusen Bihotzari ere zin egin ez zion, bada, egun haietako batean, ez zuela negarrik egingo, baldin eta semearen bisita izateko grazia bazuen, zeren berak bere **gorputz-arimak** baino gehiago maite baitzuen hura. Joan Mari Irigoien

Gorputz-arimak neuregan dauzkat, bata barnean, bestea landa. Imanol Unzurrunzaga

Eta orduan pairatu nituen izu-laborrizko sei orduek txiki-txiki eginda utzi zizkidaten **gorputz-arimak**. Koro Navarro

Gida ditzala neure **gorputz-arimak**. Patziku Perurena

Koldo Mitxelenak berak ere bere idazkietan, gure **gorputz-arimak** gorosti-makilaz bezala astintzea, esaten du behin. Pello Zabala

Egun-txintan jaitsiko dira batez ere Ganga ibai donearen uretan beren **gorputz-arimak** xahutzera. Gotzon Garate

Estatuaren zakurren azio eta atzaparkada haien bero errea hotzildua delarik, orain, hemen, Ostiela! izeneko desparadisu honetan, gauza batzuk esan daitezke, lehen, ordu gazi haietan, **gorputz-arima** torturatuen bistan, esan ez zitezkeenak. Iñaki Segurola

Sukarra dut, sukar ikaragarria, edo **gorputz-arimak**, bata zein bestea, sufrikariotan jartzen dizkidan sukarrezko urduritasuna, hobeto esanda! Josu Zabaleta

Izan ere, neure okaldi hartan **gorputz-arimak** barrendik garbitu ondoren, abiatu nintzen berriro elizarantz, nondik eliztarrak gartzelarantz baitzihoazen, prozesionean, osaba presoaren bila. Joan Mari Irigoien

Baina hara non, bat-batean, inarrosaldi batek eraso egin zion, **gorputz-arimak** porrokarazi. Patxi Zubizarreta

27 *gorputz-ariman*

Lur-en seme-alabetan badituk sustraien oroitzapena barnago **gorputz ariman** senditzen dutenak. Michel Oronoz

28 *gorputz eta arima* erabat.

Eta aitak bazekien alabak **gorputz** eta arima maite zuela. Fernando Rey

Saiatzen ziren, **gorputz** eta arima, egiten zutena goi mailako artelan bihurtzen. Felipe Juaristi

Ur erauntsi bizi-bizi haietara **gorputz** eta arima emana zen, estasi halako batean. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

arima arrazoiduna (12); **arima arrazoidunak** (6); **arima arrazoidunaren** (5); **arima asko** (11); **arima baino** (13); **arima bakoitza** (7); **arima bakoitzeko** (6); **arima bat** (43); **arima bat bera** (5); **arima baten** (6); **arima beltza** (12); **arima bera** (21); **arima bere** (23); **arima bezala** (6); **arima bizirik** (5); **arima da** (16); **arima deabruari** (9); **arima deitzen** (6); **arima egoera** (6); **arima enkoniatuak** (6); **arima erratu** (5); **arima espainol** (6); **arima espainola** (16); **arima espainolaren** (27); **arima eta gorputza** (11); **arima ez da** (11); **arima ez dela** (7); **arima ezin** (5); **arima galdu** (10); **arima galtzen** (9); **arima gorputza** (5); **arima gorputzetik** (5); **arima guztiak** (12); **arima guztiz** (7); **arima herratu** (17); **arima herratuak** (6); **arima hil** (10); **arima hilak** (46); **arima hilak en** (10); **arima hilen** (12); **arima hilen kontu** (5); **arima hilezkorra** (7); **arima hori** (17); **arima horiek** (5); **arima horren** (5); **arima hura** (8); **arima ikusi** (5); **arima izan** (6); **arima jainkoari** (5); **arima on** (5); **arima ona** (6); **arima ongarriak** (6); **arima osoa** (7); **arima osoz** (5); **arima salbatu** (6); **arima salbatzeko** (10); **arima saldu** (10); **arima santu** (7); **arima substantzia** (5); **arima zer** (5); **arima zer den** (5); **arima zola** (14); **arima zolan** (16); **arrazaren arima** (9); **bere arima** (83); **beren arima** (10); **beste arima** (13); **beste arima bat** (5); **bi arima** (8); **ene arima** (29); **euskal arima** (7); **ez da arima** (5); **giza arima** (21); **gizakiaren arima** (12); **gizonaren arima** (6); **gorputz eta arima** (31); **gorputza eta arima** (19); **gure arima** (30); **haren arima** (61); **herriaren arima** (20); **hire arima** (10); **hiru arima** (5); **mila arima** (6); **munduaren arima** (17); **neure arima** (7); **nire arima** (47); **orduan arima** (5); **santuaren arima** (7); **taldearen arima** (6); **zein arima** (6); **zen arima** (13); **zeure arima** (12); **zuen arima** (24); **zure arima** (23)

arimak ezagutzen (5); **arimak ezin** (8); **arimak jauna** (7); **bere arimak** (6); **beren arimak** (5); **beza ene arimak** (6); **dauden arimak** (6); **ene arimak** (12); **ene arimak jauna** (7); **geure arimak** (6); **giza arimak** (15); **giza arimak bere** (5); **gorputz arimak** (22); **gure arimak** (9); **haien arimak** (11); **haren arimak** (8); **hildakoen arimak** (5); **nire arimak** (11); **zeuen arimak** (6)

arimako begiak (5)

bere ariman (16); **ene ariman** (5); **gure ariman** (6); **haren ariman** (6); **munduaren ariman** (8); **neure ariman** (5); **nire ariman** (9)

arimarekin defendituko dut (12); **bere arimarekin** (5); **eskuarekin eta arimarekin** (10)

arimaren alde (23); **arimaren baitan** (8); **arimaren begiez** (5); **arimaren bila** (5); **arimaren edo** (5); **arimaren egoera** (5); **arimaren eta gorputzaren** (6); **arimaren etsai** (7); **arimaren hilezkortasuna** (10); **arimaren hilezkortasunaren** (8); **arimaren indar** (5); **arimaren indarra** (6); **arimaren irakaspen** (17); **arimaren izaera** (14); **arimaren jabe** (5); **arimaren ondoko** (8); **arimaren ondoko ezkien** (6); **arimaren onerako** (6); **arimaren osasuna** (5); **arimaren sakonean** (5); **arimaren salbamenari** (6); **arimaren salbamenerako** (8); **arimaren zati** (7); **arimaren zolan** (6); **baina arimaren** (6); **bere arimaren** (54); **bere arimaren alde** (6); **beren arimaren** (8); **ene arimaren** (13); **euskal arimaren** (10); **giza arimaren** (24); **gorputzaren eta arimaren** (6); **gure arimaren** (19); **haren arimaren** (14); **herri arimaren** (8); **neure arimaren** (12); **nire arimaren** (27); **zure arimaren** (9)

arimari buruzko (12)

arimarik ez (24); **arimarik gabe** (14); **arimarik gabeko** (19); **ez zegoen arimarik** (5); **ez zen arimarik** (7)

---

arimadun *(orobat **animadun** g.er.) izond/iz/izlag* arima duena.

Modu berean, jende arruntak "bizidun"tzat arima daukana besterik ulertzen ez duenez, Jainkoa **arimadun** gisa aurkeztu izan da. Xabier Kintana

Arima akzidente bat dela uste duenak nahitaez onartu beharko du izaki **arimadun** orotan ehun mila arima sortu izan direla, esaterako, minutu bakoitzean, denbora, haien aburuz, ongi dakizunez, zatiezinezko istantez osatua baita. Xabier Kintana

Hala ere, espioiak ez bezala, ni **arimadun** hiltzailea izan nintzen gerran, ez nuen diruagatik ez krudelkeria hutsagatik hil. Alberto Ladron Arana

Han, zinezko baino bihotzekoago den herri hartan, eman baigenion tankera gure guztizko lur **arimadunari**, han erein gure gogoaren hazi inozentea. Patziku Perurena

Ez al zuen bada, gerrak egin zaldia **arimadun** eta gizona zaldun? Patziku Perurena

Ez duk otsoa, **arimaduna** duk!Unibertsoko **arimadun** ororen arimak zeruko esferaren ariman du hastapena. Koldo Izagirre

Atributu horien guztion xedea Hari betegintza orokorra egoztea da, baina ez sorkarien artean **arimadunen** betegintzatzat jotzen dena bera. Xabier Kintana

Alkimiaren historia kimikarena baino gehiago, **arimadun** espirituena edo frenologiaren historia fisiologiarena baino gehiago, gai atomistikoen historia eta ez fisikarena. Xabier Arregi

---

arimagabe *(orobat **animagabe** g.er.)* **1** *izond/iz* arimarik ez duena.

Hauek gorputz **arimagabeak** dira, bizitzarik ez hautamenik ez dutenak, berenez higitzen ez direnak, eta beren toki naturaletan geldi egoten dira. Xabier Kintana

"Erlaitz soil batetik" irakurriko du ozen, so eginen diogu, orobat, Mont Blanc-en gailur biluziari, lehenik, eta damu izango gara begietan izateaz irudi **arimagabe** bat, ohildu zuena pentsamendu bizi bat, berriro ere ez datekeena. Oskar Arana

Ikusi nuen haren begi-nini polit **arimagabeetan**, beirazko puxtarriak iduri, haserre gar ttikia pizten. Matías Múgica

Gaztetarik ezagutu zuen Lodz hura begien bistan desagertzen ari da, eraikin berri **arimagabeen** eta berreraikuntza faltsutzaileen zamaren azpian. Iban Zaldua

Horretan bertan ikusten da zer begiramen gutxi dioten **arimagabe** hauek besteren fedeari. Jon Alonso

Baina, nonbait uste baduzu suaren eta lurraren gorputza eta airearen aurak eta uraren jariotasuna elkarkuntzan euren izaera batere ez aldatzeko moduan batzen direla, ezingo zaizu haietatik ezein gauza sortu, ez animadunik ez zuhaitza bezalako gorputz **animagaberik**. Xabier Amuriza

2 *arimagabeko*

Erromatarra barbaroa da, **"arimagabeko**, ezfilosofiko, arterik gabeko, arrazatsu brutalitateraino, kupidagabeki arrakastari begiratua, kultura heleniarraren eta ezerezaren artean kokatzen da. Joxe Azurmendi

Norbaitek guraso ezbidezko izan ditzakeela-eta, beldur bada, zergatik ez gauza bera seme-alaba **arimagabekoen** kariaz? Andres Urrutia

3 *gorputz arimagabe*

Hauek **gorputz arimagabeak** dira, bizitzarik ez hautamenik ez dutenak, berenez higitzen ez direnak, eta beren toki naturaletan geldi egoten dira. Xabier Kintana

---

arimagabetu *izond* arima gabe gelditua.

Jendea ikusi zuten, nahiz zaila zitzaion Zeunerri, soldadu izanik bera ere gerran zaildua, soldadu izanik bera ere gerran **arimagabetua**, han, bere begien aurrean, manta lodiz estalirik, noraezean zabiltzanak gizakiak zirenik sinestea. Felipe Juaristi

---

arimagaldu *iz* arima galdu duen izakia.

Rusaddir-en, **Arimagaldu** baten haragitan pizturiko argien argia izenburuko prediku garaiz kanpokoa eman zuen. Juan Garzia

---

arimakari *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* hilaren alde egiten zen elizkizuna. ik **hileta**; **funeral**.

Bestelako xedapenik izan ezean, dohaintza-hartzaileak dohaintza-emaileen lurperatze, hileta eta **arimakariak** ordenatu eta ordaindu beharko ditu, tokiko usadioarekin bat etorriz eta etxeari dagokionaren arabera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zenbatekoaren erdia gotzainari emango zaio, horrek **arimakarietarako**, eta Elizaren laguntza eta beharrizanetarako destina dezan, eta beste erdia gobernadore zibilari emango zaio, hildakoaren bizilekuko ongintza-erakundeetarako, edo, halakorik izan ezean, probintziakoetarako destina dezan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Testamentugileak, bere arimaren aldeko **arimakari** eta erruki-egintzetarako, bere ondasun guztiak edo batzuk xedatzen baditu modu zehaztugabean eta horien erabilera finkatu gabe, albazeek ondasunak salduko dituzte eta horien zenbatekoa banatuko dute; zenbatekoaren erdia gotzainari emango zaio, horrek **arimakarietarako**, eta Elizaren laguntza eta beharrizanetarako destina dezan, eta beste erdia gobernadore zibilari emango zaio, hildakoaren bizilekuko ongintzaerakundeetarako, edo, halakorik izan ezean, probintziakoetarako destina dezan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arimakide *izond* ariman kidea.

Gazte hura **arimakide** sumatzen zuen Russellek-: Wittgenstein Irlandako eliza batean galduta zebilen. Fernando Morillo

---

arimaldatu du *ad*

Gehienak, Pitagorasek bezala, gorputz askotara **arimaldatu** beharko dute askapena lortu arte; batzuk, proteikoak, "bizi bakar baten epean, lehoiak dira, herensugeak dira, basurdeak dira, ura dira eta zuhaitz bat dira". Juan Garzia

---

arimatxo *iz adkor* arima xumea.

Jainkoarengan sinesten duten ergelek pentsatzen dute gure izate guztia Berarengandik datorrela, eta umekiari, jaio bezain azkar, **arimatxo** bat etortzen zaiola bizia ematera, hau ere Jainkoak sortua; ondorioz, krimen nagusitzat jotzen dute izaki hori desegitea, euren ustez gizakia ez delako jada haren jabea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

arimazain *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi) iz* erlijioan, arimen ardura duen pertsona. ik **apaiz**; **abade**.

Arte eskola horiek arte hipokrita bat ekoizten dute, **arimazainei** eta, orokorrean, erlijio irakasle mota guztiei hezibidea ematen dieten eskolek ekoizten duten erlijiotasun hipokritaren guztiz antzekoa. ETC-literatura, saiakera

1774-1778. urteetan, Markin-Etxebarriko **arimazain** jardun zuen. ETC-literatura, saiakera

Joan dadila astebetez gogo jardunak egitera, Rouco Varela **arimazain** ezin hobea izango du- eta, bere gaitz guztiak sendatu eta demokraziara biltzeko. ETC-prentsa

Rollo eta Mugartegi harremanetan izan ziren, eta, segurik, alkatearen bitartez ezagutu zuen eskoziarrak euskara erakutsi eta barinagar baserritarrekin harremanetan jarriko zuen kristaua, hau da, herriko **arimazain** don Juan Barkin abadea, geroko baten hizkuntzalariari lanak txukunduko zizkion -edo txukundu asmoz jardungo zuen- pertsona, alegia. ETC-prentsa

Protestanta izanez, Apez "pasteur" **arimazainak** kudeaturik, elizan erligione horri doakion zeremonia egin da bere ehorzketetan. ETC-prentsa

Eta besteak (bere kartzelatze auhenez aparte) amodiozko neurtitzak, aski errespetu gutxikoak eleiz gizon batentzat, eta batipat **arimazain** den apez bati ez dagozkionak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Filosofia eta Teologia ikasi zituen, eta 1774 eta 1778 artean Markinako abade parroko edo '**arimazaina**" izan zen. ETC-entziklopedia

arimazko *izlag/izond* arimaz osatua.

Ez du Jaungoikoak gorputzez sentitzen, animalia gorpuzdunek bezala, ez baita bera gorputz eta **arimazkoa** ; horregatik izaera soil hark aditu bezala sentitzen du eta sentitu bezala aditzen; gauza bera dira Jaungoikoagan sentimena eta adimena. Imanol Unzurrunzaga

"Rosseti-ren obsesioa"n, emakumetasun bakarraren **arimazko** (Victoria) eta haragizko (Eugenia) mamitzeek, Etika-ko bigarren liburuko natura bakarraren pentsamenduzko eta hedadurazko adierazpen paraleloa erakusten dute. Markos Zapiain

Edo arrazarekin uler daiteke "zerbait kosmiko eta **arimazkoa"** , Spengler-ek egiten duen bezala Horren arabera, gizon-emakumea gorputz eta **arimazko** izakia da, erdibitua alegia. Joxe Azurmendi

Arimazkoa , propiokien, ez-materiala eta suntsiezina da, gorputz hilkor batean preso dagoena mundu honetako bizialdian. Askoren artean

Zeren doña Lidia emazteki alargun bihozbera bat baitzen, buruz ongi jantzia eta bere buruaren jabea, eraman handikoa eta moja batzuekin lan egiten zuena ospitale batean, norat eramaiten baitzituen aurkientza haietariko jende printzipalak bere gaixoak eta eriak, gorputzezkoak nahiz **arimazkoak** . Joan Mari Irigoien

---

arin *(ETCn **34.163** agerraldi)* **1** *izond* pisu edo astuntasun gutxikoa, erraz jasotzen dena; larria ez dena. ant**astun**.

Lehenbiziko ate **arina** baztertu eta zurezkoan poliki jo zuten. Aurelia Arkotxa

Banketea egin ondoren, aienatzen zirenean, beren burrukaldi eta ardailetan galdutako luma **arin** batzuk uzten zituzten, biziaren eta heriotzaren arteko testigu. Patziku Perurena

Nire anaiak zuen adinean ileak ateratzen hasten dira hanketan eta sudurpean ere pizar batzuk, bibotetxo hori eta **arin** baten antzeko zerbait. Pello Lizarralde

Arinak ziren; edonork pentsatuko zuen batere pisurik ez zutela. Eskarne Mujika

Baina kontrastean, umore beltza eta ironia fina dabiltza kukuka, absurduaren poesia-printza batzuk hemen, lirismo **arin** bat han. Eskarne Mujika

Era berean, begira bedi zein sarrera **arina** den leherkari, horren funtsezko gai bat jasotzen badu ere. Lourdes Oñederra

Halaz grisa da munduko kolorerik egiazkoena, zuria eta beltzaren nahasketa neurriak osatzen duelarik grisaren dentsitatearen oinarri **arin** nahiz sakona. Itxaro Borda

Jantzi **arinekin** zegoen, sport jantziekin, baina aurpegi bera zen, irriño adiskidetsu berarekin. Gotzon Garate

XYZ: Ni emaztearen oroimen urdinetik ihesi nentorren, haren prostata kiskalitik, haren ezpain ezpatazkoetatik, eta jo egiten nuen, oi, eta jo egiten nuen egunero eta maite nuen eta haren gorputz **arin** eta limurkorraren estasia eta gerriko beltza, oi, maite zenbat maite zintudan bchwzploliptf. Karlos Linazasoro

Berez inoiz ez zuen orgasmoa lortu, baina modu **arin** batean esatea erabaki zuen, ea elkarrekin hitz eginda hobetzeko bidea aurkitzen zuten. Luis Elberdin

Galtza **arin** xuriak, marra urdin bertikalekilakoak eta hiru botoinekilako gaineko marroin petatxudun bat eman zizkioten jantz zitzan. Eneko Bidegain

Liburu hau idazteko, maila **arinago** edo sakonagoan iturri, etorri, idazkera eredu edota ideia harrobi gisan erabili ditudan pertsonekiko zorren kitapena egin nahi dut, eskerrak agertuz, zeini eta hauei: Pako Aristi

Aitak begiratu egin zidan, aurpegia irribarre **arin** batekin argituz. Juan Kruz Igerabide

Aurki hartu zuen loak olerkari eta kazetaria, zurrunga hots **arin** batek salatu zidanez. Juan Luis Zabala

Ez ditut jadanik sentitzen denboraren irristatzea eta ukitu **arinak** . Monika Etxebarria

Soinketa horrek berotu nau pixka bat eta urrats **arin** batez hasten naiz joan-jinka zeldan harat-honatka. Filipe Bidart

Une hartan bertan, Lajos sartu zela ohartu nintzen, zaratarik egin gabe, beti bezala, antzezleen ibilera **arinaz** ; han nonbait zen gelan, gugandik gertu. Ander Irizar

Mikroaren aurrean jarri aurretik gaurko prentsari begiratu **arin** bat eman diot, elkarrekin igarotzeko ordu batzuk dauzkagu eta, zelan ez, albiste batzuk izango ditugu hizpide. Paddy Rekalde

Ur usteldua duen lorontzi batean ahaztutako loreei darien kirats **arina** lehenbizi, izugarria gero. Joseba Urteaga

Pozten naiz! " edo "zelako putakeria, txo!" eta gero "agur" **arin** bat. Sonia Gonzalez

Zerua zilarrezko oihal mehatx eta **arin** bat, zilarrezko zeta, gain hartan hedatua. Michel Oronoz

Hegodunek lur gutxiago, ur gutxiago, sua ez asko, eta aire asko izaten dute: honela, elementurik **arinenekin** osatuta, errazago ibiltzen dira airean hegan. Santiago Iruretagoiena

Liburua itxi, kaskoa buruan ezarri eta ezpondaren magalean egindako aterpetik irten zen pauso **arinez** . Josetxo Azkona

-Gurin **arin** horri buruzko txosten bat beharko dut, ahalik eta txosten osoena. Joxan Elosegi

Gustu fineko gizona izan zu; hortik sartu zinen egun berean konturatu nintzen horretaz! -eta ostatuko sarrera seinalatu zuen kokotsaren mugimendu **arin** batez. Anjel Lertxundi

Eskaileretako iluntasun mehean begirada **arin** bat egin zion orriari. Edorta Jimenez

Bolada hartan loa ere aldatzen hasi zitzaidan, kontu harekin nekez egin bainezakeen lo itxurazkorik, hamaika amesgaiztok zeharkatutako lo **arina** nagusi. Joan Mari Irigoien

Baina era **arin** eta atseginean idatzia zegoen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Musu **arinaz** inarrosi zizkidan ezpainak. Itxaro Borda

Beste arrosa-landare igokari bat, adar bihurrikoa eta lore te-koloreak ematen zituena, fatxadan gora igotzen zen mahatsondo baten moduan, eta halako tankera delikatu eta **arin** bat ematen zion etxetzarrari. Koro Navarro

Emango nioke jateko zerbait ea lasaitzen den, baina dauzkadan zatar guztiekin estaltzen naiz hotzak ez hiltzeko, baita egunkari zaharrekin ere... den mugimendurik **arinena** egin, eta behera dator dena. Koro Navarro

Demba jaunak mugimendu **arin** bat egin zuen, ogia zegoen aldera. Anton Garikano

Amak, irribarrez, beste musu presati bat eman eta, bazkalorduan nire bila etorriko zela aginduta, urrats **arinez** urrundu zen. Alberto Ladron Arana

Oinaze **arin** bat sentitzen nuen begien atzean. Koro Navarro

Nahastura hori berotan moldatu, eta gai gogor, **arin** eta merke bat ateratzen zen. Irene Aldasoro

Beste hainbat arlotan diskurtso propio zaindua duen egunkari honek, zergatik hartzen ditu ezdeustzat "horrela datozelako horrela ematen diren" **arin** itxurako kanoikada gaitzok? Iñigo Aranbarri

Halatan, haize **arin** eta beroaren buhakoek balakatu ninduten, edertasun eskainiaren aurrean bitxiki susmo txarrak haziz. Itxaro Borda

Gero, telebista isiotzen zuen eta lokarturik geratzen zen besaulkian, zurrunga **arinak** eginez. Eskarne Mujika

Itsasontziko mutilek mugimendu **arin** azkarrez giza katea osatu zuten eta, batak besteari eta hark hurrengoari lagunduz, zama astuna pasaraziz, berehala eraman zituzten sotora pasaiarien gauza eta trepeta guztiak. Felipe Juaristi

Ez zen inor hil, eta kalte **arinak** besterik ez zituen ukan, zoritxarrez. Koldo Izagirre

Hitzak esan eta berehala, eztanda **arin** baten burrunban desagertu zen gerlariaren gorputza, aireak xurgatu balu bezala. Aritz Gorrotxategi

Azkenean, baliteke eroaldi **arin** bat izana. Monika Etxebarria

Kontaketa **arinak** , didaktikoak, baikorrak. Karlos Zabala

Eta iruditu zitzaionean berriz andre gaztearen urrats **arinak** entzuten zituela, kontuz zirritu bat ireki bere gelako atean eta konprobatu zuen egiaz neska zela, bere gelara itzultzen ari. Matías Mujika

Dimitrik, ordea, bizitza **arin** hura utzi eta agintea nahi zuen, eta horretarako bidea egiten ibilia zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

• **2** *adlag* intentsitate gutxiz; laster; ardurarik gabe.

Beraz, besterik gabe, fruta eskatu izan zezakeen arren -"garaiko fruta" ere eskaintzen baitzuen kartak-, ziurtzat jo nuen berriro ere bat etortzear geundela, eta **arin** jarri zitzaidan bihotza, taupadaka, nolabait ere neure buruarekin konpromisoa hartua bainuen haren mahaira hurbildu eta "may I join you" esatekoa. Ramon Saizarbitoria

Luis zureganaino heldu da eta besarkatu egiten zaitu, makurtuaz, atzetik, aurpegia zure lepo eta sorbalda arteko bihurgunean murgilduz, ezpainak azala **arin** ukituz. Lourdes Oñederra

Hiru egun barru bai, ordea, berriro bilduko nintzen Elosegi eta bateriajole potoloarekin eta **arin** ibili beharko nituen hankak neure arrasto guztiak atzean laga eta, inork ikusi gabe, "zera hori" eta kloratita guztia Château Landon hoteleko armairuan ezkutatzeko. Hasier Etxeberria

Mendebaldeon, kimikaz eta fisikaz diharduen alderdi hau nutrizioak du aztergai eta gure desioetatik kanpo dauden erreakzio metaboliko gehienek - ezin hauta dezakegu digestioa **arin** egitea, ez gizentzea etab., nahi dugunean - osatzen dute, zintzurretik behera "automatismoak" martxan hasitakoan. Edorta Agirre

Nik uste Théophile Gautierrek **arin** samar jokatu zuela, agian Parisko egunkariek emandako presaren zamarekin; baina, nolanahi den, portaera etikoari iruzur egin gabe, inor engainatzeko asmorik gabe. Bernardo Atxaga

Operazioa **arin** egiten saiatu zen Matias, ahotsak hurbilegi egon baino lehen. Unai Elorriaga

Orduan xutitzen naiz, ibiltzen arditegiaren itzulia eginez, kasik airos, **arin** bederen, garbitu banintz bezala. Piarres Aintziart

Enbarazuan dagoen mendi edo muinoa pasa eta gero, hantxe eguteran, haize-babesa nola harrapatzen duen, han bai, hain **arin** datorren elurra, hantxe beheraka doa, haize-hutsunea topatzen duelako. Pello Zabala

-Baina... lehendik ere bazekien kontatu diodan guztia eta **arin** joan da. Unai Elorriaga

Aditu ote zituzten txistuen hots zorrotzak, madrildarren jakingura eragin zutenak? Egun horretako kronikak azalduko duenez, madrildarrak kalera etorri dira, **arin**, frontera doazen ikurrindunak ikustera. Edorta Jimenez

Ohizkoan bazkalosterako uzten bazituen ere, **arin** ireki zuen, susmoa egia bihurtzeko gogoz. Joxemari Urteaga

Beste batzuetan Ariane **arin** irteten zen, ia korrika, Goiori hurbiltzeko astirik eman gabe. Joseba Sarrionandia

Ibai lasai dotorea, zeinen bazterretik, gau partean, Heriotza igarotzen baita bizikletan **arin**. Koldo Biguri

Arin utzi zuten taberna. Iñaki Zabaleta

Zein **arin** eta zein seguru egin zuen ikusirik, agerian utzi zuen eskaturikoak bazuela lotura zuzena Joxemirekin. Xabier Montoia

Behin, buruhas zihoan dama bat pasatu zen aldamenetik, itzalkin farfailazko bat zabalik; **arin** pasatu zen, eta apaizak burua makurtuz agur egin zion. Xabier Olarra

Bizkor, **arin** ukitu zuen sutondoa. Anton Garikano

Eta nik ere lehenengo liburuarekin idazletzat hartua izatea lortu nuenez, berehala pasatu zitzaidan ardura hori eta oso **arin** gelditu nintzen libre beste ardura batzuei heltzeko. Ana Urkiza

Zorionez, guk nahi bezain azkar eta harrapataka ez baina aski erraz eta **arin** saldu genituen ale guztiak. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina ez nadin **arinegi** joan. Jon Arretxe

Oinordetza sistema osoa aldatu beharra dago, herritarren aukera berria **arin** atondu behar delako jabedun berrien bitartez. Andres Urrutia

3 (predikatu gisa)

Heze eta bero bere eskumuturreko azala ere: izan ere, soineko hura hain zen **arin**, paperezkoa baitzirudien. Harkaitz Cano

Halaber erreparatu behar da, pozaldi-garaian erraz eta **arin** den bezala ordubete osoa kontenplatzen egotea, hala arrunt zaila dela lehorraldian betetzea. Patxi Altuna

Hau egia da Hindu Gizarteari dagokionez ere, nahiz eta honen harremanak **arin** samarrak izan. Iñaki Mendiguren

4 (erkaketetan)

Lehiakideak hegoak bezain **arin** daude. Josu Zabaleta

Lehendabiziko etapetan, kasurik onenean pentsatu baino **arinago** aurreratu ziren. Agustin Otsoa

Megapark egitasmoari bide egiteko, Udalak Hiria Antolatzeko Plan Nagusia aldatu baino **arinago**, ezer gutxi balio zuten lurrok. Berria - Euskal Herria

Kalejira hasi baino **arinago** antolatzaileak muturra okertuta ageri ziren arren, apurka lasaituz joan ziren. Berria - Euskal Herria

Gaur, ordea, inoiz baino **arinago** igo zaio. Lutxo Egia

Eta emakumeen artean bazen bat, besteak baino ederragoa, besteak baino distiratsuagoa irribarrean, besteak baino **arinagoa** dantzan, besteak baino maitagarriagoa, besteak baino gorriagoa jantzian. Felipe Juaristi

120. Oraindik bekatarien artean bizi zenean, munduan zehar ibili zen predikatzen; orain, zeruan aingeruekin errege bizi delarik, Errege gorenaren mezulari bezala pentsamenduak baino **arinago** egiten du hegan, eta herri guztiei banatzen dizkie salbamen-ondasunak. Askoren artean

Biziki harriturik, Jaunaren miraritzat jo zuten gertatua, jakinik ez zitezkeela emakume arruntak izan, txoriek baino **arinago** hegan egin zutenak. Askoren artean

Luixak musu ergel bat eman zidan eta xoria bezain **arin** urrundu zen! Janbattitt Dirassar

Joanesek nahi baino **arinago** ibili zirelako, berehala ikusi zuten jauregiko hesiaren burdinazko ate handia. Felipe Juaristi

Laztan bat izan zen, ukitze goxo baino goxoago bat, igurtzi **arin** baino **arinago** bat burmuina leherrarazi zidana. Jon Muñoz

5 ***afari arin***

Afari arina egin zuen, bazkaria bera baino arinagoa, baina Raimundo Silvak bi kafe-kikaratxo edan zituen baten ordez, laster mehatxatuko zuen logurari aurre egiteko, aurreko gauean loaldi eskasa egin zuela kontuan harturik. Jon Alonso

Pentsa zitekeenaren kontra, **afari arina** eskatu zuen gonbidatuak, eta arnoa ere neurriz edan zuen. Joan Mari Irigoien

Gazela ez baina kattagorria etorri zitzaigun platerekin eta ardoarekin. "Zerbait arina" jango genuela esan zuen Jontxuk menua aukeratzean, baina **afari arin** hartan Latinoamerikan aste oso batean jan ohi nuena baino gehiago irentsi nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Eginen dira irakurketak eta gogoetaldiak **afari arin** baten inguruan. Herria

Beranta dute, **afari arin** batekin gelditzen dira, bestenaz ere ez dute halako gosea, ez-usaiako arratsal-askaria egin baitute. Michel Oronoz

Afari arina eskatu -txerrikumea baino ez-, arropa berehala erantzi, eta, burusi azpian sarturik, lo pisu batek hartu zuen, harriak bezala lo egin zuen, zabal eta zabar, hala nola lo egiten baitute ez odoluzkirik, ez arkakusorik eta ez buru-ahalmen handirik ez duten [...]. Jose Morales

Ganbara bat erakutsi zion gazteluko alderdi ilun batean zena, baina pausatzera utzi baino lehen, **afari arin** bat eskaini zion. Aurelia Arkotxa

Gizon batek **afari arin** bat ekarri zuen, eta mutil gazteak eseri egin ziren formak errespetatzeagatik. Irene Aldasoro

6 ***arin-arin***[1] *adlag*

Etorri zitzaion monje bat **arin-arin** eta, harriduraz gainezka, galdetu zion: "Zer gertatu da, ama, jaiki ahal izateko?". Askoren artean

Bi pakistandarrak **arin-arin** sartu dira autoan, tutik esan gabe. Berria - Harian

Arin-arin sartu da Palestinako Legebiltzarrean beste kideekin elkartzeko. Berria - Mundua

Urduritasuna azalean, ezin kabituta sumatzen zen Simoni Mortirolon gora, lehertzeko zorian, baina Cunego maglia arrosa atzean utzi ostean, **arin-arin**, alai-alai egin zuen gora, bizkar gainean zuen pisu astunaz libratuta bezala. Berria - Kirola

7 ***arin-arin***[2] *iz*

Fandangoari eta **arin-arinari**, berriz, behekoa. Iñigo Aranbarri

Ohiko **arin-arin** eta fandangoaz gain, polkak ere ikusi ahal izan zituzten inguratutakoek. Berria - Kultura

8 ***arin-arin***[3] *izond*

Hegada **arin-arinez**, Jainkoaren gizona zegoen lekura hurbildu zen, airean geldituz. Askoren artean

Igotzaile aparta, garapen **arin-arinak** eraman zalea, erlojupekoetan ere txukun moldatzen da, beste igotzaileen aldean. Berria - Harian

9 ***arin-arinka***

Mikel Strogoffek **arin-arinka** zeraman zaldia, bera kanpo eta barne hartzen zuen ezinegon bortitza abereari sentiarazten ziola oso-osorik. Karlos Zabala

Itsua hatzak arin-arin ibiltzen hasi zelarik, soldaduak ere **arinka-arinka** hasi ziren jira eta buelta. Felipe Juaristi

Arin-arinka igo du solairu bat eta beste ate batetik atera da eskailera nagusira. Joxemari Iturralde

10 ***arin baino arinago***

-Musikak ez du aberririk -ausartu zitzaion Zeuner, eta ikusirik aurrean zuen gizonak eskuak mahaipera eraman zituela **arin baino arinago**, kokotsa gora begira, sabai keztatura zuzen jarria zuela berriro, gaineratu zuen, ahots apalez -. Felipe Juaristi

Arin baino arinago urrratu nuen papera eta gure begien aurrean Txipi Amorosen Orotariko maitasuna azaldu zen. Aitor Arana

Hotelera itzuli zen **arin baino arinago**, eta sarrerako aretoan, larruzko besaulki batean eserita, gizon garai, bizkar-zabal, jaka grisez jantzitako bat ikusi zuen, betaurrekoduna bera. Felipe Juaristi

Bada, otsokumeak **arin baino arinago** deskubritu zuen Wendy irlara etorri zela, eta haren bila hasi zen, topatu arte; eta biak lasterka hasi ziren, bata bestearen besoetara heldu arte. Julen Gabiria

Druida izutiak **arin baino arinago** alde egin zuen, ezpata bat-batean bizira etorri eta odol egarria berarekin aseko zuen beldurrez bezala. Joanes Urkixo

11 *arin batean*

Ondoren, aurkarien durduzamendua profitatuz, zabaldu zuen **arin batean** bere kupearen bortañoa, bultzatu ninduen barnerantz deus konprenitu ahal izan nezan baino lehen, itxi zuen kupea, jarri zen bere aulkian eta trostan partitu zen. Koldo Izagirre

Beraz, gosaldu eta, bere gauzak motxilan bildu ostean, arakatzeko geratzen zitzaion hondartzara abiatu zen goizean, **arin batean** ostatuan bueltan egongo zela guztiz sinistuta. Xabier Montoia

Sotoko atexka **arin batean** itxi, giltzatu eta, karrika-zulotik aterata, ordu hartan erabat mortu agertzen zen Maximilian plaza zeharkatzen hasi nintzen. Alberto Ladron Arana

Ziur nago, nola zauden jakiten duenean, **arin batean** etorriko dela laguntzera, eta hemendik aterako zaituela. Juan Kruz Igerabide

Argazkilari horien artea (gogora ditzagun Cartier-Bresson bat, edo Doisneau, edo Robert Frank, edo Kertész) une hori **arin batean** harrapatu, koadratzen jakin eta ziurtasunez kliskatzean datza. Josu Zabaleta

Bi gizonak **arin batean** sartu ziren Oskarren konpartimentu hutsean. Alberto Ladron Arana

12 *arin egin*

-Erromes Grisa ala inor ez, antza -esan zuen Pippinek, bidexka bihurritik gora **arin eginez**. Agustin Otsoa

Arin egin behar zen. Unai Elorriaga

Arin egingo diat paso nik hiri! Urtzi Urrutikoeetxea

- Halako drogosoa haiz eta, nik uste nian gezurra zela! - **arin egin** du tabernariak, ohitura dauka letretan. Koldo Izagirre

-Arin egin, bidaiariak itzultzen ari dituk eta! -ohartarazi zuen Hansek konpartimentuko atetik. Alberto Ladron Arana

13 *arinari eman* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Sartu ditiat postakutxan, sakatu zioat txirrinari eta **arinari eman** zioat kalean gora. ETC-literatura, saiakera

Eurekin batera irten ziren anpraziarrek ere **arinari eman** zioten haiek harrapatu nahian. ETC-literatura, saiakera

Claesek eginiko zaratak iratzarrita, **arinari eman** gura izan zion, usterik herriko txinelen bat zetorrela ohe hartatik altxatu eragin ondoren Steen-era eroateko, legezkoak ez ziren ibilien aitzakian. ETC-literatura, saiakera

Dela izaeragatik edo egoeragatik, ama-alabak apal eta isil agertzen dira, ez dira hur-biltzeko errazak edo hizketa **arinari emanak**. ETC-literatura, saiakera

Mandoek estekak hautsi eta **arinari eman** zioten. ETC-literatura, saiakera

Ospitalera heldu helduko, Fabianek **arinari eman** zion eskaileran gora Sophieren bulegoraino. ETC-literatura, saiakera

Gaztetan tailer batetik metalak lapurtzen ari zirela ugazaba agertu eta **arinari eman** behar izan zioten. ETC-literatura, saiakera

14 *arma arin*

Arrasateko Bergaretxek, esate baterako, txirrika bidezko sistema baten berri eman zigun tentsio altuko kableetan erabiltzeko, eta nik, noizean behin, **arma arinek** nola funtzionatzen zuten azaltzen nuen arbel batean. Rafa Egiguren

"Baina, ez pentsa, **arma arinagoak** ere badira hemen", esan zidan. Bernardo Atxaga

AI Amnesty International eta Greenpeace erakundeen arabera, 2003. urteko otsaila eta iragan urtarrila bitartean, Espainiak **arma arinak** eta munizioak saldu zizkion Khartumi salmenta 8.000 eurokoa izan zen. Berria - Mundua

Bagdadeko iturri batek adierazi zuen ekintzaileek AEBetako marine-ei mortero eta **arma arinekin** egin zietela eraso. Berria - Mundua

15 *artilleria arin* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Iragan asteburuan, adibidez, Samarran indarrak pilatzen ari ziren bitartean, EIk hiriari eraso zion bonba auto suizidekin, **artilleria arinarekin** eta frankotiratzaileekin, iturri ofizialen arabera. ETC-prentsa

Belgradeko kaleko borrokak, 1944ko urrian, haren ikuspuntutik deskribaturik daude, Palmoticeva kaletik ikusirik: handik iragaten da **artilleria arina** eta izkinan zaldi lehertu bat datza. ETC-literatura, saiakera

Hurrengo gauean, Kawaguchik Edsonen 830 raiderrei 3000 soldadu eta era asktotako **artilleria arinarekin** eraso zien. Japoniar erasoa ilundu orduko hasi zen. ETC-entziklopedia

16 *bekatu arin*

35 **Bekatu arina** egiten da, baldin bekatu larria egiteko pentsamendu bera badator eta gizonak nolabaiteko luzamendua onez entzuten badu, edota atsegin lizun samarra hartuz edota pentsamendu hura uxatzen berankor samarra izanez. Patxi Altuna

Ez zion aita Altunari kontatu beharrik izango, eta huskeriak aitor ziezazkiokeen itxurak egiteko: **bekatu arinak**, pentsamendu gaiztoak eta halakoak. Ramon Saizarbitoria

Bekatu astunak jadanik ez du ukitzen, ez eta **bekatu arinak** ere, eta ez die hauei lekurik ematen, beren esku leudekeen aldetik". Joan Mari Lekuona

Eta berrikitan ikasi dudan hitza, gormandiza delakoaren orde, ñapurkeria, arras gustukoa zait mahatsa are gehiago Eta **bekatu arinak** emaiten duen urriki gabeko erasia birtualak goxaturik, lokartzen naiz. Piarres Aintziart

Norbaitek **bekatu arina** egingo balu, berriz, aitor biezaio anaia apaizen bati. Askoren artean

Bederatzigarrenak, egitezko bekatu ezberdinak badirela eta zer den bekatu larria edo mortala eta zer **bekatu arina** edo beniala; eta zerk bereizten dituen larria eta arina. Piarres Xarriton

17 *bela arin* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Nazioarteko Bela Federazioak (ISAF) **bela arina**, olinpikoa eta gurutze-ontziena zuzentzen ditu. ETC-entziklopedia

Arraunzale ugari ere biltzen dira Arabako urtegi honetan, eta bertan arrauna, **bela arina**, piraguismoa eta halako uretako kirolak egiten dituzte. ETC-prentsa

Bela arin su hartuaz. ETC-literatura, saiakera

18 *buru arin* ik **buruarin**.

19 *elementu arin* *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi)*

Elementu arinak eraldatu zituzten, besteak beste, karbonoa, fosforoa, burdina eta beruna sortuz. ETC-prentsa

Hidrogeno isotopo bat da berez deuterioa, **elementu arin** bat. ETC-prentsa

Ondorio hori eta **elementu arin** eta astunen arteko bereizkuntza zuzeneko behaketen bidez justifikatu zituen Aristotelesek. ETC-literatura, saiakera

Kontuz ibiliz gero, **elementu arinak** ere itsats dakizkioke zikloramari (bi aldeko zinta itsasgarria erabilita, edo orratzez josita). ETC-zientzia, zuzenbidea

Bero handia dago orain, 10.000 milioi gradu, **elementu arinenak** sortzeko erreakzio nuklearrak abiarazteko nahikoa. ETC-literatura, saiakera

Meitner eta biak aspalditik ohituak ziren ikustera bazirela talken ondoriozko produktu batzuk zenbait erreakziotan uranioa baino askoz **elementu arinagoak** balira bezala jokatzen zutenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nolanahi ere, bada ezaugarri erkide bat: nukleosintesiaren mekanismoak oso litio, berilio eta boro gutxi izatera darama, zeren **elementu arinok**, edo sintesiak hautaturiko bideetatik kanpo geratzen dira, edo sortu bezain laster erretzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Elementu arinen kasuan, fotoi horiek zenbait kiloelektronvoltekoak dira; berunaren kasuan, aldiz, fotoien energia karakteristikoa 60 keV da, gutxi gorabehera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikertzaileen arabera, litosferara iristen den mantuaren zati hori, aberatsagoa da **elementu arinagoetan** eta beroagoetan, inguruko mantua baino. ETC-entziklopedia

Teoriak azalpen ona ematen dio ikusten dugun hainbat fenomenori, hala nola **elementu arin** askoren ugaritasunari, hondoko mikrouhin erradiazioari, Hubbleren legeari eta

Unibertso behagarriaren egiturari. ETC-entziklopedia

Elementu arinak (hidrogeno eta helioa), berriz, eguzkitik oso urrun kondentsatu ziren, eguzkitik gertu gas egoeran geratuz. ETC-entziklopedia

Felsiko izena hartzen dute **elementu arinez** osaturiko arroka igneo eta magmek. ETC-entziklopedia

20 *erre-arin*

Haragi **erre-arina** ari dira jaten, arretaz eta gogoz, murtxikatzeari eta irensteari adi-adi, zaharren jarreraz; izan ere, horrelakoentzat jatea ez da elikatzea bakarrik, egintza solemne eta antzina-antzinako bat burutzea baizik. Xabier Olarra

21 *haize arin*

"**Haize arina** banintz zure ezpainetara joango nintzateke hiltzera», Banvilleren Zéphyr poema kantatu zuten. Berria - Kultura

Zain zegoen, belarria urrutiko hotsak entzuteko erne, **haize arinak** teilatua eta hormak igurzten zituenean ikara eginez. Josu Zabaleta

Haize arinak bazterrak kateztatzen zituen. Itxaro Borda

Dantzarako oholtzak hutsik daude oraindik, eta paperezko mila bandera, bonbilla harietatik zintzilika, ozta mugitzen dira itsasotik datorren **haize arinetan**. Josu Zabaleta

Ilargiak belaontzi bat zirudien laino arteko uhinetan kulunka, eta **haize arin** batek erdi harrotzen zizkion oihalak. Anjel Lertxundi

Haize arin bat zebilen, doinua ekartzen zidana. Bernardo Atxaga

22 *hanka-arin* *(orobat* ***hankarin****)* *izond*

Joanes mezulari gazte **hanka**-arina. Felipe Juaristi

Zuen artean **hanka**-arinik baldin badago, zaldizko onik, joan dadila mutilaren bila. Fernando Rey

Eta kontatzen dit nola, gazte lirain eta **hanka-arina** artean, airoso joaten zen herri batetik bestera. Xabier Olarra

Alboan bi zakur **hankarin** zeramatzala. Juan Kruz Igerabide

23 *hegazkin arin*

Hegazkin arinen garraioan eta eraikuntzan hasi zen lanean, eta lanbide horiek Manilara eraman zuten. Berria - Kirola

- Junker 52 eta Heinkel 111 bonbaketariak, eta Heinkel 51 **hegazkin arinak** ikusi dituzte Gernika inguruan. Lutxo Egia

Hegazkin arin bat hodeipean, jira dotorea eginda gaztelura buruz amiltzen. Koldo Izagirre

24 *hormigoi arin* *(corpusean ez dago; ETCn* ***12*** *agerraldi)*

Sototik bigarren solairura hormigoi arrunta erabili zen; solairu horien gainetik **hormigoi arina** erabili zen. ETC-entziklopedia

Bestela esanda, airebideetako materialak hormigoi arina izan behar du gutxienez, inoiz ere ez zeramikoa, eta komeni da hormigoi erregogorrezko piezak jartzea, berokuntzako edo ur bero sanitarioko banakako galdarak husteko hodien antzera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oin kubikoko 60 libra baino gutxiagoko pisu espezifikoa duen **hormigoi arin** eta bero-eroankortasun txikikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hormigoi arinek egituren pisua txikitzen dutenez eta termikoak isolamendu egiteko oso egokiak direnez (eroankortasun txikia baitute), eraikuntzan erabilgarriak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

25 *industria arin* *(corpusean ez dago; ETCn* ***54*** *agerraldi)*

Familia nuklearraren sorrerarekin batera, **industria arinetik** industria astunerako bidea egin zen, hots, ehunetik ikatz eta metalerako bidea. ETC-literatura, saiakera

Azken urte hauetan, **industria arinaren** produkzioaren garapenak eta ehungintzaren, altzarigintzaren eta telekomunikazioen arloek ezaugarritu dute. ETC-prentsa

Neurri horiek ere produkzioaren hazkunde nabaria ekarri zuten, batez ere **industria arinean**, kontsumo-ondasunen ekoizpenean, eta beste aldaketa batzuei zabaldu zieten bidea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kotoiak pisu gutxiago zuen Britainia Handitik kanpoko **industria arinetan**, eta, ordainetan, gehiago hazi ziren ehungintzako beste espezialitateak edota nekazaritzako elikagaien kontsumoko beste batzuk. ETC-zientzia, zuzenbidea

Industria arineko lantegi bat ere badute, instalazio fotoboltaikoen jarraitzaileak muntatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretaz gainera, estatuak **industria arina** sustatu zuen, kotoizko ehunei muga-zerga altuak eta kotoi gordinari muga-zerga apalagoak ezarriz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Industria arinen bat edo beste hasi da txertatzen (ehunak, porlana, pospoloak, alkoholdun edariak...), baina eskulangintza da oraindik nagusi (larrua, zurak, armak, metal preziatuak, etab.). ETC-entziklopedia

Bi pabilioi sortu ziren, industria pisutsu eta **industria arinerako**, eta 1957ko abuztuaren 11n Bilboko VIII. Erakustazoka inauguratu zen. ETC-entziklopedia

Gune hau nahitan laga zen kanpoan, bertako harrobien itxieraren ondoren **industria arinaren** sorrera bultzatzeko asmoz. ETC-entziklopedia

26 *metrailadore arin* *(corpusean ez dago; ETCn* ***11*** *agerraldi)*

Gerrillariek 300 errifle eta 40 **metrailadore arin** inguru hartu zituzten. ETC-prentsa

Eta Spetsnaz operazio berezietako taldeen tresnerian, Makarov pistolak, AK-47 eraso-fusilak edo kaxa tolesgarridun aldaerak, RPK-74 **metrailadore arinak**, SVD Dragunov doitasunezko fusilak eta AGS-17 tiro bakarreko granada-jaurtigailuak. ETC-literatura, saiakera

Lehen Mundu Gerran infanteria **metrailadore arinak** masan erabiltzen hasi ziren erasoan su automatikoa edukitzeko beharra ikusi ondoren. ETC-entziklopedia

Elikagailua: 20 kartutxoko kargagailua (30 kartutxokoa **metrailadore arin** bertsioan). ETC-entziklopedia

27 *metro arin*

Diseinu eta eraikuntza lanetan daude Mexikoko metrorako zenbait proiektu, Brusela eta Erromako lurrazpiko trenbideetarako, eta Sevillako **metro arina**. Berria - Ekonomia

28 *mihi-arin* *(orobat* ***mihiarin****)* *izond*

Etengabeko aro ederra oparituko zion laino **mihi arinetan** zaldizka. Itxaro Borda

Urkamendietan herriaren aurrean egin beharreko urkaketetan ez zen itxura onekoa bizitza zuzen eta oneko kristauak sokari tiraka aritzea, urkatzen ari ziren basapizti **mihiarina** biraoka eta aireari ostikoka akabatu ezinik ari zen bitartean. J.M. Olaizola "Txiliku"

29 *musika arin*

Musika arinerako gogo guztiak kentzen dizkit, gainera, Dutertrek. Josu Zabaleta

"Vulcain" irrati alimalekoak dantzarako **musika arina** zabaltzen zuen sukaldean. Alberto Ladron Arana

Whiskyak edontzietara isurtzean egiten zuen **musika arinak** interludio atsegin bat eratu zuen. Irene Aldasoro

30 *pisu arin*

"ETAk su-eten iraunkorra iragarri zuen arte, erraza zen Jose Luis Rodriguez Zapatero **pisu arineko** buruzagia zela esatea. Berria - Harian

Jakina da euskaldunak **pisu arinenetan** ibiltzen direla ondoen, eta halaxe frogatu da Rochesterren (AEB) jokatu den Mundialean. Berria - Kirola

Fusio-nuklearrak **pisu arineko** nukleo bi batzen ditu, pisu handiagoko bat sortzeko. Berria - Gaiak

Haize-Hostoa izeneko zaldi handi eta grisak ez zuen zama berria nabaritu ere egin, Dernhelmek, bizkorra eta indartsua izan arren, gizon gehienek baino **pisu arinagoa** baitzuen. Agustin Otsoa

Boseoan ere, peso mosca deitzen zaio **pisu arineko** jokoari. Patziku Perurena

Jakablu barneko patrikan zeraman pisu dexenteko paketea, eta haren ondoan txekea, **pisu arinekoa**. Unai Iturriaga

Eztiki eraman nuen Ixabel gure ohetik gelako sehaskara eta bere gorpuzñoaren **pisu arina** nire besoetan nuela, aurpegira behatu eta irribarrez esan nion ez izutzeko nirekin. Hasier Etxeberria

31 *pronostiko arin* *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi)*

C., Gurutzetako ospitalera eraman zuten jasandako intoxikazioagatik, **pronostiko arinarekin**. ETC-prentsa

Gainera, Barakaldon, bi kotxek elkar jota, hamabi urteko pertsona batek **pronostiko arineko** zauriak egin zituen ostiralean. ETC-prentsa

32 *zalditeria arin* *(corpusean ez dago; ETCn* ***38*** *agerraldi)*

Zalditeria arina ahulki babesturik eta armaturik zeuden eta euren abiaduragatik nabarmentzen ziren zalditeria tropei erreferentzia egiten die, zalditeria astunarekin kontrajarrita, eskuarki, armatu eta babestua zegoena, baina ez hain bizkorra. **Zalditeria arineko** tropak, errekonozimendu misioetarako, borrokarako eta erasorako erabiltzen ziren. ETC-entziklopedia

Numidiar **zalditeria arinak** xabalina sortak zituen eta zaldunak bridarik edo zelarik gabe zaldien gainean zeuden. ETC-entziklopedia

Austria-Hungariako armadako sail lokabea, **zalditeria arinaz** , infanteriako hainbat unitate txikiz eta artilleriako pieza gutxi batzuz osatua. ETC-literatura, saiakera

Ezkerrerantz gure **zalditeria arinak** Plevnako gainak garbitu zituen, eta, Bonafide Sabaoth beren gerra-oihuaren hotsa zabalduz, artillero sarrazenoak lepo egin zituen, azken gizona hil arte. ETC-literatura, saiakera

Erreparatu kapitain bikainen ohituran, batailaren hasieran **zalditeria arina** bidaltzen dute bultza egiteko, eta gero, gauzak estutzen direnean, oinezko gudariak eta armadaren giharra. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

arin abiatu (8); **arin arin** (109); **arin arina** (23); **arin arinak** (15); **arin bai** (16); **arin bai arin** (16); **arin baina** (10); **arin baino** (15); **arin baino arinago** (15); **arin bat** (178); **arin bat baizik** (8); **arin bat egin** (21); **arin bat eman** (9); **arin batean** (20); **arin batek** (24); **arin batekin** (21); **arin baten** (19); **arin batez** (33); **arin batzuk** (19); **arin egin** (12); **arin egiten** (10); **arin elkarteko** (14); **arin ibili** (12); **arin jaitsi** (8); **arin joan** (16); **arin samar** (9); **arin zauritu** (50); **arin zauritu zen** (13); **arin zauritu ziren** (20); **arin zihoan** (9); **bai arin** (21); **begirada arin** (13); **begirada arin bat** (9); **begiratu arin** (11); **begiratu arin bat** (7); **bezain arin** (63); **burua arin** (8); **dardara arin** (11); **dardara arin bat** (10); **hain arin** (31); **hankak arin** (7); **horren arin** (7); **hots arin** (11); **mugimendu arin** (12); **musu arin** (8); **oinak arin** (18); **oso arin** (26); **saio arin** (7); **zoaz arin** (7)

arin arina (23); **arina da** (23); **arina egin** (19); **arina izan** (19); **arina izango** (7); **arina zen** (13); **arina zuen** (7); **bezain arina** (14); **lo arina** (10); **oso arina** (15); **saio arina** (8); **zama arina** (10)

apur bat arinago (7); **arin baino arinago** (15); **arinago egin** (7); **arinago ibili** (8); **askoz ere arinago** (7); **baino arinago** (93); **bat arinago** (10); **batzuk arinago** (10); **gero eta arinago** (18); **hilabete arinago** (7); **ordu batzuk arinago** (7)

arinagoa da (11); **arinagoa izan** (7); **baino arinagoa** (21)

arin arinak (15); **arinak dira** (7); **arinak egin** (10); **arinak eragin** (9); **arinak izan** (36); **arinak izan zituen** (13); **arinak izan zituzten** (9); **arinak ziren** (14); **kalte arinak** (10); **zauri arinak** (45); **zauri arinak izan** (22)

---

arinagotu, arinago(tu), arinagotzen da/du *ad* arinago bihurtu.

Nik **arinagotu** egin nituen, gehiago oraindik, nire pausoak. Joxemari Iturralde

Adiskideren bat egokitzen bazait eta hasten bagara Zeldaz mintzatzen, adibidez, **arinagotu** egiten da bola; bakarrik banago, ordea, ito egiten nau. Jesus Mari Mendizabal

---

arinaldi *iz* arintzeko aldia.

Gogorapen horrek **arinaldia** ekarri zidan eta **arinaldiak** , berriz, erretzeko gogoa. Aingeru Epaltza

Bazirudien urak oroitzapenak azaleratu eta nabigatzen jartzen zituela [...] eta beren gorputzei **arinaldi** fisiko antzeko bat ematen ziela. Anton Garikano

Arinaldi horietan irribarre puxka bat ere egiten du, erdi burlattiki bat bailitzan... Nolanahi, datorkeen uda-giro arinagoak ere ez baitakar behar bezainbat egonkortasun eta pisu: noski, nola ekarri arinago denak pisu gehiago, ezta? Pello Zabala

---

arinarazi, arinaraz(i), arinarazten du *ad* arintzera behartu.

Langile puta andana horiek merezi luketela lanean **arinaraztea** , ez hogeita hamabost orenez astean, baina bai berrogeita hamarrez, gu laborariak ari garen maneran, soldata emendaketarik eta erretreta esperantzarik gabe! Itxaro Borda

---

arinbide *iz* arintzeko bidea.

Konponbide txarra du gainera horrek oso, baina badira edo izan dira hor nonbait ezbehar honen kontra asmatutako **arinbideak** , eta horietako bat da, edo zen, txakil-ardoa (hots, "zakil-ardoa") izeneko usadio beneragarria. Iñaki Segurola

Infekzio izugarri eta **arinbiderik** gabeko horren eraginpean egon direlako, edozein heriotza-arriskuk bezala liluramendu moduko baten indarra baitu. Xabier Olarra

---

arindu, arin(du), arintzen *(ETCn **14.078** agerraldi)* **1** da/du *ad* pisua edo zama gutxitu; larritasuna kendu; azkartu.

Ez zitzaion amorrua **arintzen** , larrituta zeuzkan begiak. Bernardo Atxaga

Han **arintzen** du arima ezbehar guztietatik, eta beronen zauriak sendatzen. Joan Mari Lekuona

Eta hunkituta, horrelakoetan sarri egiten dena egin nuen, hau da, berarenak **arintzeko** nire nahigabeak azaldu. Migel Angel Mintegi

Herio bihurtu ginen - bota zuen Maisu Zaharrak, azkenean, bestearen min nabaria **arindu** nahian bezala. Fernando Morillo

Espaloia balantzaka zebilen kulunka handiz; jasanezina zen haren sufrimendua, eta oinez jarraitzea nahiago izan zuen, ibiliaren ibiliaz oinazea **arinduko** zitzaiolakoan. Karlos Zabala

Litekeena da bihurgune segidak motorraren hotsa eta argia **arintzea** , baina ez azken unea arte. Pello Lizarralde

Guztiarekin, garaiz iristeko ohitura ez genuen sekula galduko, eta ikusmiran egotea -denborapasa **arintzeko** modu bat baino ez, ordu arte- gure itxaronaldietako entretenimendu nagusi bilakatuko zen. Pedro Alberdi

Enpirikoki, ordea, oso ezagunak dira, eta hori dela eta, "trikimailu" ugari asmatu izan da ilunetarako egokitzapenaren gelditasuna **arintzeko** batez ere. Josu Zabaleta

Gela garai hotz huts goibelek **arindu** egin ninduten eta gelarik gela ibili nintzen kantari. Irene Aldasoro

Zubia pasatu ondoren Brezok erlojuari egin zion begiratu azkarra eta, honekin batera, bere pausoak ere **arindu** egin ziren dexente. Joxemari Iturralde

Isiltasunaren ostean aita mintzatu da: "tira ba, **arindu** dugu zama". Urtzi Urrutikoetxea

Euskaltzaindiak ere aspaldian egin behar zuen holako zerbait, etorkizunaren **arintzeko** pixka bat. Pello Salaburu

Losintxatua sentitu zen; lehen aintzat hartu ez, eta orain **arindu** egin zen Ramsay andrearen hizketa saio harekin. Anton Garikano

Ez al dezakezue ordaindu beharreko odol-zerga **arindu** ? Jon Alonso

Eta amak, aitak eskatu ziona zerbitzatu; biak hizketan hasi, eta, berandu gabe, zurrutak **arindutako** mihiari eragin omen zion aitak. Joan Mari Irigoien

Atzera bakarrik utzi nindutenean hasi nintzen desgogara boltsetan miatzen, ez zerbait falta ote nuen, komuneko satsa **arintzearren** Vim erosi barriaren bila baizik. Koldo Izagirre

Egia da, anitz datu aurki baitaitezke hemen, gehienak testuan zehar eta batzuk atzeko aldean tauletan bilduak, irakurketa **arintzeko** asmoz eramanak hara. Pello Salaburu

Eta pozak urduritasuna **arintzen** zidan. Joan Mari Irigoien

Krisi urte gogorrak ziren Poloniarentzat, gatazkatsuak, eta gobernu komunistak **arindu** egin zituen kontroletako batzuk: ez funtsezkoenak, noski, baina bai, adibidez, herrialdera dirua erakar zezaketen kontu zenbaitzuetan. Iban Zaldua

Minduta ahoskatu ditu azken hitzok ingeniariak, frustrazioa ezkutatu ezinik, eta Peterrek egin du berba orduan, agian lagunaren ondoeza pixka bat **arindu** nahian. Jon Arretxe

Garraiolariek gasolioaren zergak **arintzea** eskatu diete administrazioei... Urtzi Urrutikoeetxea

Kontzientzia **arintzeko** lain izan zen. Fernando Morillo

Marie Ann, bere emaztearen masaje eta igurtziek mina **arintzen** zioten, baina bere itxura egunetik egunera desatseginagoa zen. Harkaitz Cano

Pentsamendu hark, **arindu** beharrean, are asaldura handiagoa ekarri zidan. Alberto Ladron Arana

Bidaia luzearen nekea **arintzeko** aritzen ziren, itxuraz, egiteko hartan. Anjel Lertxundi

- Jangelaren azpiko sotoan da -azaldu zuen, mintzaera larridurak **arindurik**. Juan Garzia

Presondegi garratz hori apur bat **arindu** zitzaion hilabete bat eta erdiren buruan, baina 1563ko martxoan ez zuen oraino legoa bat baino gehiago hiritik urruntzeko baimenik. Piarres Xarriton

Lanera itzuli baino lehen eguraldia zer moduz zegoen behatu zuen, apur bat hobetu da, ibaiaz bestaldekoa ikuskor izaten hasi da, marra ilun bat baizik ez, ziriborro luze bat, ez dirudi hotza **arindu** denik. Jon Alonso

Eta hartu, ez hartu egon banaiz ere, batere zalantzarik gabe erosi egin dut nire arrangura obsesioa doi bat **arinduko** zelakoan, erantzun lagungarriren bat topatuko nuelakoan. Patxi Zubizarreta

Diotenez, sufre uretan murgiltzen denak ahaztu egiten omen ditu bere min eta samin guztiak, lasaitu eta errelaxatu egiten omen da, arazoez **arindurik**, eta, bainutik ateratzerakoan, erabat pertsona berria sentitzen omen da. Felipe Juaristi

Gaixorik sentitu nintzen batean, etxera agertu eta esan zidaan: "Pultsuak egitera natorkin, mina **arintzeko**". Juan Garzia

Mina ere **arintzen** ari zitzaion... Iñaki Mendiguren

Axenario **arindu** egin da, begiak goxo-goxo itxi eta lo-kuluxka bat hasi du. Itziar Otegi

Lotutako giharrak askatu behar izan ditugu, **arindu**. Iñigo Aranbarri

Lo aurpegi txiki hari hurbil-hurbiletik so egitea besterik ez zuen behar izan bere bizitzaren pisua eta eguneroko arazoak **arintzen** zirela, desagertzen zirela sentitzeko. Ibon Uribarri

Egunak daramatza begietako negar-jarioa **arindu** ezinean, eztul eta eztul hasi zen garaitik-edo. Jokin Muñoz

Biziago ematen du, karga hilgarriaz **arinduta**. Aingeru Epaltza

Zenbait egunen buruan, saristatua izan den testu famatua bukatu ondoren, bizi normal batera itzultzeko parada ukan zenuen... Agian, zuretzat bizitzaren pisua **arindu** zen egun horretan. Ramuntxo Etxeberri

Gauean soinketa pixka bat eginez oinazea behintzat zertxobait **arintzen** nuen. Josu Zabaleta

Metaletan, ordea, ez da hain larria izaten kaltea, amore ematen baitu metalak, eta, hartara, pitzaduraren muturreko tentsioa **arindu** egiten baita. Irene Aldasoro

Erien ikusten, xaharren sustatzen zait laket: ahul den jendeak ez nau zauritzen, errukiak aldiz **arintzen**. Piarres Aintziart

Eta maitasun horrek **arindu** zion ama galdu izanaren pena. Jose Antonio Mujika

Erritmoa **arintzen** du horrela, eta oso erraz irakurtzen da. Eskarne Mujika

Gero eta okerrago ahoskatzen zituen hitzak, urteekin, **arindu** beharrean, pisu astun batez kargatu balitzaizkio bezala. Imanol Zurutuza

2 (era burutua izenondo gisa)

Zigorraldia betetzeko hiru urte falta dituela prisión atenuadan - presoaldi **arinduan** - jarriko zuten, Mundakan. Edorta Jimenez

Ene aldetik, nazkatua eta errabiatua nintzen, bilkuretarik landa nola, hala debaldeko tentsioz betea, moltsa erabat **arindua**, haur mukuzuari ardikirik ez niola sekula gehiago eskainiko fermuki zin egina. Itxaro Borda

3 (era burutua izen gisa)

"Zeinen deskantsu handia! Zer **arindua**! ", zioen behin eta berriz nire emazteak, amaren bat-bateko aldaketa hura sinistu ezinik. Patxi Iturritegi

Arinduarena aise uler daiteke: goizetan, asteburuan ezik, eguerdira bitartean, bederatzi eta hamar iragarpen eman ohi nituen aldi batean. Pello Zabala

Hura **arindua**! Bernardo Atxaga

Pepinen erregealdian egindako araudiek, benetako **arindua** ez, **arinduaren** itxaropena eman zioten Elizari. Iñaki Iñurrieta

Bihotzekoaren ondoren **arindua**. Joseba Sarrionandia

4 (adizlagunekin)

Haien sufrimendua izugarri **arintzen** da Bev-i esker. Oskar Arana

Gero, berriz bakartasun hutsa, baina bederen erlainoa hasia zen noizbehinka **arintzen**. Aurelia Arkotxa

Sano **arinduta** zeudela zirudien, ez zutelako Cumhail beldurgarri ospetsuaren aurka borrokatu beharko. Joanes Urkixo

Zorionez osabak Maite jatorrarekin harremanetan jarraitzen zuen eta horrek zinez **arintzen** zion izan zezakeen barne bakardadea. Aitor Arana

Usteak arras **arindu** direlako **arindu** dira, ikusezin egiteraino arindu ere, gauzak adierazteko bideak. Joxerra Garzia

5 ***arindua eman***

Horrek **arindua** ematen zion, barrenean zimiko bat bazuen ere. Karlos Zabala

[...] honek bere harrotasuna, bere burua nabarmentzeko grinaren femur eta saihetsezurrak agerian jarri eta **arindua** eman ahal izan diezaien. Anton Garikano

Pentsatu nuen amak kolpe handia jasoko zuela kolegioko bertsioaren berri izatean, eta erretoreari entzuteak izugarrizko **arindua** emango ziola. Bernardo Atxaga

6 ***arindua hartu***

Arindua hartu nuen, jakina, pozik gure arazoa hain laster eta hainbesteko eraginkortasunez konpondu zela-eta, baina nire zati batek desengainua hartu zuen, eta zerbaitez gabetzen zutela ere sentitzen zuen. Oskar Arana

Dembak sekulako **arindua** hartu zuen. Anton Garikano

Baina, egia erran, halako **arindua** hartu nuen Gestapoko morroirik bisitan ez nuela jakinda. Alberto Ladron Arana

-Silesiako umeek, jakina! - esan, eta arnasa hartu zuen Norak, ordu arte sentitzen zuen zamak berak, bere buruari emandako erantzun harekin, sekulako **arindua** harturik. Anjel Lertxundi

Berak, David Luriek, **arindua** hartu du, emakume batek gizon bati **arindua** hartzen laguntzen dion eran. Oskar Arana

7 ***burua arindu***

Istripuko kolperen batek **burua arindu**, eta amnesiak jota nengoela. Anjel Lertxundi

Hilabeteak zeramatzan bainatu gabe, eta ur beroak giharrak laxatu eta **burua arindu** zizkion. Elena Touyarou

-Orduan erotuta zaude, edo **burua arinduta**, edota jendea limurtu nahi duen bat zara. Koldo Biguri

Kafe batek **burua arintzen** lagunduko zidalakoan irten naiz etxetik, baina ez dakit alferrik ez ote den izan. Migel Angel Mintegi

Baina, pentsatu zuen, bere begi txinatarrak kizkurtuz eta hark emakumeei iseka nola egiten zien oroituz, "ez dakite pintatzen, ez dakite idazten", zergatik nik honi lagundu bere **burua arintzen**? Anton Garikano

8 ***gorputza arindu***

Orduan, Coke malapartatuaren eraginez, pixagurea egin zitzaidan eta patioko txoko batera erretiratu nintzen **gorputza arintzera**. Javi Cillero

9 ***poltsa arindu*** gastatu; lapurtu.

Bidaiari guztiek ez zuten **poltsa** gogo onez arindu nahi izaten. Aingeru Epaltza

Ikasia baitzuen ordurako norberaren inozotasunak errukira bainoago maltzurkeriara bultzatzen dituela besteak, balizko inozoaren **poltsa** arintzeko helburuz lapurbidera alegia. Felipe Juaristi

10 ***sabela arindu*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Disenteriak jota zeuden gehienak, eta gauean **sabela arintzearren** norbait altxatuz gero, denak esnatzen zirela. ETC-literatura, saiakera

Soroan **sabela arintzen** ari den amona dela, airean ibili dabiltzan izpirituak direla, begirakune zaharreko herri guztiek dituzte nola-halako edo burdinazko legeak noiz-zer ikusi behar den eta non-zer ez den ikusi behar, arautzen dutenak. ETC-literatura, saiakera

Bihotza eta **sabela arintzen** ditut idaztean. ETC-literatura, saiakera

11 ***zerga arindu***

Finantzaketa: Etxebizitzak finantzatzeko politika ez da **zerga arintzean** oinarrituko. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arindu behar (12); **arindu beharko** (5); **arindu ditu** (4); **arindu dute** (4); **arindu ederra** (4); **arindu egin** (34); **arindu egin dute** (4); **arindu egingo** (7); **arindu egiten** (15); **arindu handia** (4); **arindu nahi** (17); **arindu nahi du** (6); **arindu nahian** (14); **arindu nahirik** (6); **arindu ordez** (4); **arindu zidan** (6); **arindu zion** (7); **arindu zituen** (4); **arindu zuen** (14); **arindu zuten** (4); **asko arindu** (4); **ez zuen arindu** (4); **pausoa arindu** (7); **zama arindu** (9); **zergak arindu** (5); **zertxobait arindu** (5)

---

arindura *iz* larritasun edo kidekoren bat arintzea.

Esan dezaket hainbeste nekeren ostean, alferrikako horrenbeste eginahal eta saioren ostean, denborarekin nik ere bakea, lasaitasuna, **arindura** aurkitu nituela. Urtzi Urrutikoetxea

Begiak itxi eta hauspoa hustu zuen, biriketan **arindura** eskerga hartuz. Harkaitz Cano

Izan ere, mundu honetan, zalantza aldian aholku, min aldian **arindura**, gaitz aldian esku ona, inork emango duenik ez uste. Patxi Ezkiaga

Poztu egin zen, **arindura** handia sentitu, baina gizonaren tonu iluna entzun orduko poza kezka bihurtu zen. Migel Angel Mintegi

Egarri nintzelarik, bero nintzelarik, izen horrek gordetzen zuen promesak berehalako **arindura** sorrarazten zidan. Urtzi Urrutikoetxea

Egun hartan nagusiak indar berria zuela iruditu zitzaion Sami, zamaren **arindura** ia hutsalak eman ziezaiokeena baino indar handiagoa. Agustin Otsoa

Bere aurpegian islatu zen **arinduragatik**, arriskua gainditua zegoela jakin zuten denek, berak besoak jaso eta zera aldarrikatu aurretik: [...]. Joanes Urkixo

Zeremonia-maisuen ondotik, herri xehea: Ximurraren ama, seme-alabak eta gainerako jendakiak, begitartea minaren, nahasmenduaren eta **arinduraren** artean kulunkan. Aingeru Epaltza

Nik uste dut euskaldun jendea, zuzen-zuzenean gatazkan daudenez aparte, **arindura** sentimendu handiarekin gabiltzala, nahiz eta zalantza handiak ere izan. Berria - Harian

---

arineketa *(ETCn **34** agerraldi)* **1** *iz* lasterketa.

Neskatoa **arineketa** batean etorri da aldapan behera. Joseba Sarrionandia

Hatz magikoz ukitu zuen bidaiak bizitzaren pultsu benetakoa, eta giza kirioen makineriak ahalegin guztiak egin zituen, bulartsu, animalia urdin bizkor haren **arineketa** jauzkariari erantzuteko. Irene Aldasoro

Orduan, autobusa gasolindegitik abiatzeko zela, arlote itxurako agure bat hurreratu zaigu **arineketa** nekosoan, bizkarrean zekarren zamak eragotzirik. Jon Arretxe

Gerri bueltan, urteek pilatu eta **arineketa** urriko bizimoduak itsatsitako kilotxoen sobera nabari zaio. Pako Aristi

2 ***arineketan*** *(ETCn **821** agerraldi) adlag* lasterka, korrika.

-Zatoz, **arineketan**. Sonia Gonzalez

Kalebarrin gora **arineketan**, elizako erlojukanpaiak entzun zituen. Pedro Alberdi

-Krokodiloa! -esan zuen totelka, eta **arineketan** hasi zen, kontramaisua atzean zuela. Julen Gabiria

-Lurrin-makina baten modukoa da eta torlojoz eta azkoinez beteta dago -oihu egin zuen, bueltan **arineketan** zetorrela. Lopez de Arana

Ba, hurrengoan erakutsiko didak! -esan dio Aitorrek, eskailerak **arineketan** jaitsiz. Jokin Muñoz

Arineketan joan da itsasoraino bidezidorrean behera. Koldo Izagirre

Aldirietako autoak **arineketan** doaz bide asfaltatu honetan. Javi Cillero

Arineketan igoko zara ontzi gainera eta astia izango duzu oraindik izotz tontor handi bat zatiak galtzen eta iraultzen ikusteko. Joseba Sarrionandia

Guardia zibilen kuartela eraso behar zela eta harantz abiatu ginen **arineketan**, urduritasun arraro batekin, uatxepeko milizianoen aldrarekin. Joseba Sarrionandia

Doktorea sartu da eta hauxe dio, Barkatu zain eduki izana, atearen eta hitzen hotsek Raimundo Silva asaldatu dute, bizkarrez harrapatuta, orain **arineketan** jiratzen da, Ez du axola, erantzun du. Jon Alonso

Estremotik **arineketan** abiatu eta, ez beste ekipoko defentsak bakarrik, hainbat jende driblatu behar zen derrigorrez. Joseba Sarrionandia

Goio, Inazito eta hirurok Artekaletik nasa aldera jaitsi ginen irtenbide bila **arineketan**. Joseba Sarrionandia

Ez aurrera ez atzera luzaz egon ezin zuela ohartuta, irten egin zen **arineketan**. Unai Iturriaga

Ontzi hauek, fuela garbitzeko egokitu behar izan zituzten **arineketan**. Berria - Euskal Herria

-Gora Fionn erregea! -oihu egin zuen Oisinek eskailerak **arineketan** igoz. Joanes Urkixo

Ene, ze **arineketan** zihoan ateetarantz! Julen Gabiria

Karrika **arineketan** zeharkatu eta, betertzetik, Rue des Archiveseko atea begiztatu nuen: tiroketaren zaratak begiluze andana bildua zuen ezkaratzaren aurrean. Alberto Ladron Arana

Ez nuen begira itxaroteko asmorik eta **arineketan** aldegin nuen, taxi huts bat ikusi eta geldiarazi nuen arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Orain, alde begi bistatik; ospa hemendik sukaldera, **arineketan**, eta bota haizea hatzetan. Itziar Otegi

Eta beste azalpenik gabe, **arineketan** alde egin nuen. Joseba Sarrionandia

Jaulierra ez baina funtzionario omen zen hura izuak hartu zuen, koitadua, eta **arineketan** egin zuen alde. Koldo Izagirre

3 ***arineketan egin***

Haur zikinak oihuka ari ziren, asfaltozko bidexketatik **arineketan egiten** zuten bitartean. Lopez de Arana

Mikel Strogoffek **arineketan egin** zuen harengana, eta nekearen nekez hautsitako ahotsez. Karlos Zabala

Jaulierra ez baina funtzionario omen zen hura izuak hartu zuen, koitadua, eta **arineketan egin** zuen alde. Koldo Izagirre

Maletak geltokian utzi, tranbia batera **arineketan egin** -ezin polikiago zihoala iruditu zitzaidan, geldialdi bakoitzean amorratzen- eta lasterka egin nuen etxaurreraino. Eduardo Matauko

Pentsatzen zuen Marcosi ez zitzaiola otu zaharrek beste erritmo bat dutela; ez dela guztia **arineketan egin** behar: egongelan sartu, "euririk" galdetu, oihuka ia, beste abisurik eman gabe, agurrik gabe, galerna bezala. Unai Elorriaga

Minutu baten buruan, **arineketan egin** ostean, inoren begiradetatik kanpoko bazter batean harrapatu zuen Joxanek. Paddy Rekalde

Altxa egiten da bere aulkitik; txakurrak zaunkaka hasten dira; haurrak jaitsi eta **arineketan egiten** dute ihes, aztoramenez uluka. Oskar Arana

Dukearen aurrean, mundu guztiak eusten zion arnasari, eta Dukeak beldurtuta zirudien, eta bazirudien **arineketan egin** behar zuela ihes. Julen Gabiria

---

aringa ik **arinka**.

---

aringarri *(orobat **arintgarri** g.er.)* **1** *iz* nekeak eta kidekoak eramankorrago egiten dituen zera. ik **arintzaile**.

Gaur egun, giltzurruneko arazo larriak dituztenek badute **aringarri** bat: dialisia. Berria - Gaiak

Arren, ez izan zalantzarik eta idatzi helbide honetara edozein laguntza edo **aringarri** eman diezazukegula uste baduzu. Harkaitz Cano

Zertarako aipatu nire familia, berehalaxe hasten baita pentsatzen gaixo ote nagoen, eta buruko minarentzako pastillak edo **aringarriak** ematen dizkidate, lepoa edo lokia

haztatzen didate ea sukarrik dudan. Josu Zabaleta

Urte askoan, dirua gertatu zitzaion bakardadearen **aringarri** bakarra. Patxi Zubizarreta

Kamamilazko gargarak egiten ditu, mirra tinduz igurzten du ahosabaia, **aringarri** mentoldunaz igurzten du bularraldea, sudurra, hortzak eta mingaina, eta umore txarrez dago hala ere. Josu Zabaleta

Bi aldeek adostu dute sententzia, eta gizonezkoaren alkoholismo arazoa **aringarri** izan da. Berria - Euskal Herria

Beste bat hautatu zuen, apika bera baino baxuagoa eta trauskila, egitera zihoan izugarrikeriak inolako **aringarririk** izan ez zezan. Juan Garzia

Ironia autodefentsarako mekanismo bat da, errealitatearengandik distantzia markatzeko, ezinbesteko **aringarria** bai literaturan bai bizitzan. Ana Urkiza

Kaskarinkeria da zeren lasaitasun hori, egoera honetan, geroratze hutsaren uneko **aringarri** baten parekoa da, zalantza gabe. Jon Alonso

Goraldi horren **aringarri** bakarra, alde batetik, beste herrialde industrializatuen aurrekontu-zorroztasuna eta, bestetik, garapen-bideko herrialdeen defizit korronteen ezabatzea izan zen, behartua nahiz berezkoa. Koro Navarro

Doluminak atsekabearen **aringarriak** dira eta hileta handiak ere bai. Gotzon Garate

2 *izond*

Baldintza **aringarri** barik, eta lege penaleko 418, 224, 90 eta 33 artikuluetan oinarri hartuta, hiltzeko zigorra eskatzen dut akusatuarendako. Koldo Izagirre

Sinatzeko asmoa izanez gero, adierazpen **aringarri** baten balioa izango du, eta errektorea ere prest izango da asmo horrekin egindakotzat hartzeko. Oskar Arana

Don Martin arras gaitzituta geratu zen auzitegiak, zenbait inguruabar **aringarri** onartuz, mutilari bi hilabeteko espetxezigorra baizik ez ziola eman ikusita. Josu Zabaleta

Sendagileak injekzio **aringarri** bat jarri zion. Joseba Urteaga

Honela behin, oinazeak beraren indarrentzat jasanezinak bihurtu zirelarik, bere gogoz kontra izanik ere, ezinbestekoa gertatu zen haren gorputza sendagai **aringarriz** zaintzea. Askoren artean

Aitzakiarena, arduragabetasunarena, zirkunstantzia **aringarriena**, eta zenbait adigai erabiliz, hala nola, pasio-hilketa, herentzia, arrisku soziala. Xabier Arregi

Urte batzuk geroago, orduan ez bezala, niri egiten zidaten dardara eskuek, lapur baten gisan sartu bainintzen (egun-argia **aringarria** ote?), Monika etxean ez zegoela egiaztatu ondoren. Joxean Agirre

3 (-en/on atzizkiaren eskuinean)

Ez dut isilduko erdal hiztunen kontzientzien **aringarri** ere izan zela Oteizaren jarduna: euskararik gabeko euskal herritarrak hizkuntza baino haratagoko eremu sakratu batzuetan bila zezakeen, balizko neolitiko batean, euskal arimaren esentzia. *Delituez eta Zigorrez* liburua pozarren irakurtzen ari nintzelarik, pentsatzen nuen liburu hau moral alorrean, medikuntza alorrean gure gaitzen **aringarri** izaten diren sendabide bakanen berdintsua zela. Anjel Lertxundi

Lana egiteko, zati asko egokitu ditut, pasarte asko laburtu, begien **aringarri**, gozamenaren lagungarri. Juan Kruz Igerabide

Ahalik eta eztien eman zion senarraren zorigaitzaren berri, baina, nahigabearen **aringarri**, ondasunak elkarbanatzea proposatu zion. Patxi Zubizarreta

Bestalde, ez da harritzekoa gure herri hauetan hainbeste eskerrik askoren durundioarekin nazkaturik, eta haren kargaren **aringarri**, jendea mertzi esaten hasi izana). Hiria hornitzeko eta hirian kabitzen ez zirelako mendi magaleko erdian irekiriko zorupeetan, Porta de Ferro eta Porta de Alfofaren artean, itxirik zeuden gari, artatxiki, eltzekari eta garagar-karga anitz laga zezaten etsaiaren gosearen **aringarri**, gurearen, alegia. Iñaki Segurola

Adiskidetasunaren sentsazio argitsu haiek bizi nahi zituen ahalik osoen, amilka-amilka sentitzen zuen bihotzaren **aringarri**. Anjel Lertxundi

Itsasotik zetorren haizea leuna zen, gaugiro sargoriaren **aringarri**. Xabier Montoia

Akaberara hurbiltzean, ez datozke gaizki, orrialdeon **aringarri** ere, bertsolarien artean sortu izan diren eguraldi kontuekiko ale bat edo beste. Pello Zabala

Inork ez dezala esan honakoak gaizkileen kontzientzia txarraren **aringarri** izan daitezkeela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

4 (hitz elkartuetan)

Nik ez dut Ada hil hori epaile bati zuzendu behar nion kontakizun erru-**aringarria** hasteko modu bat nuen. Anjel Lertxundi

Ordenagailutik iristen zaizun sentipen bihotz-**aringarri** hori. Antton Olano

5 ***heste-aringarri*** iz ik **purga**.

Kafean **heste**-aringarri on bat ematea izango litzateke onena. Josu Zabaleta

6 ***inguruabar aringarri***

-Tira -hasi zen, **inguruabar aringarri** guztiak izendatzen hasteko prest. Mirentxu Larrañaga

Don Martin arras gaitzituta geratu zen auzitegiak, zenbait **inguruabar aringarri** onartuz, mutilari bi hilabeteko espetxezigorra baizik ez ziola eman ikusita. Josu Zabaleta

Batzuetan, jakina, izaten dira **inguruabar aringarriak**. Xabier Olarra

7 ***zainketa aringarri*** *(corpusean ez dago; ETCn **193** agerraldi)*

Zainketa aringarriak, paliatiboak edo leungarriak gaixotasunak sendatu beharrean sintomak murrizten ahalegintzen den edozein bide da. ETC-entziklopedia

Zainketa aringarrien erabilerak dakarren eztabaidaz gogoeta egin behar dela uste dute antolatzaileek. ETC-prentsa

Medikuek, gaixo terminalentzako **zainketa aringarriak** direla eta, "egundoko aldaketa kulturala" egin behar dutela aitortu dute. ETC-prentsa

Era berean, **zainketa aringarriak** jaso dituela eta beste irtenbide batzuk proposatu zaizkiola ere egiaztatu beharko du. ETC-prentsa

Jesusek ez zuela **zainketa aringarririk** jaso nabarmendu du Iruñeko artzapezpiku emeritoak. ETC-prentsa

Apirilean egindakoak hamabigarrenak izan ziren, eta gaixo terminalentzako **zainketa aringarriak** izan zituzten hizpide. ETC-prentsa

Zein izango dira, beraz, zentro horretako erabiltzaileak? Ospitaleko alta edukita, **zainketa aringarririk** behar ez duten baina beren etxeetara itzultzeko moduan ez dauden pertsonak. ETC-prentsa

Pertsona orok du minaren aurkako tratamendu egokia eta erabateko **zainketa aringarriak** jasotzeko eskubidea, baita heriotza-aldiari duintasunez aurre egiteko eskubidea ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Heriotza duinaren idealari buruz adostasuna duen funtsezko beste edukietako bat da gaixoek eskubidea dutela kalitatezko **zainketa aringarri** integralak jasotzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kap: erabakien plangintza aurrez egitea, **zainketa aringarriak**, tratatzeari uko egitea, LET, sedazioa, eutanasia eta lagundutako suizidioa) eta, azkenik, gizakiekiko ikerketaren alderdi etikoak (7. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***zerga-aringarri*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Interes gastuak, eragiketa-gastuetatik eta inbertsio-gastuetatik ezberdintzen dira, hauek enpresa bateko kapital egiturarekin baitute zerikusia eta normalean **zerga-aringarriak** dira. ETC-entziklopedia

Lanera joateko autoz distantzia luzeak egin behar dituztenek **zerga aringarriak** jasoko dituzte. ETC-prentsa

Arteak zergak arintzen zituelako egin ziren artezale? Ala artezale zirelako erabaki zuten artea **zerga-aringarri** izatea? ETC-prentsa

Zer dio **zerga aringarriei** buruz lege horrek?. ETC-prentsa

9 ***zirkunstantzia aringarri***

Era berean, ez litzateke egokia izango objektu berri hauen agerpena XIX. mendeko gizarte burgesaren arau propioei leporatzea, polizia eta zigor-egitura indartu bati, justizia kriminal kode berri baten ezarpenari, **zirkunstantzia aringarriak** sartu eta erabiltzeari, kriminalitatearen hazkundeari. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aringarri bakarra** (3); **aringarri izan** (4)

---

arinka *(orobat **aringa**)* **1** *adlag* lasterka.

Horrela mendean izan zituen zazpi ibai, txikiak eta jostalariak, mendian sortu eta goitik behera **arinka** Itsas Beltzeraino joaten zirenak. Felipe Juaristi

Alkateak jauzi egin zuen zalgurditik behera eta eskaileretan gora hasi zen **arinka**, tripa lodia dantzan. Felipe Juaristi

Halatan, ahoa sutan zuela, ziztu bizian joan zen bainugelara, oinak **arinka**, ahoko sentsazio suhar hura berehala amatatzearren. Josetxo Azkona

Saudade hiriko atea gainditu zuen, eta oinek eman zioten indarrez mendebaldera abiatu zen, lasterka batzuetan, **arinka** bestetan. Felipe Juaristi

Arinka aldegin dut, neure barrena baretu beharrez, nora noan ere ohartu gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Ordu bete baino gehixeago iraun zuen kirurgia-lanak, eta amaitutakoan, eskuak garbitu, kaleko arropak jantzi eta **arinka** atera zen aldagelatik. Oskar Arana

Abadearen atzetik **arinka** joan ginen gu, mutiko txiki ilunak. Joseba Sarrionandia

Navaleko, Caballitoko eta Babcockeko langileak entzutea baino, Zapaterok nahiago izan zuen **arinka** joatea Espainiako erregearekin biltzera. Berria - Euskal Herria

Ordu bete baino gehixeago iraun zuen kirurgia-lanak, eta amaitutakoan, eskuak garbitu, kaleko arropak jantzi eta **arinka** atera zen aldagelatik, amarekiko elkartze atzeratua zela-eta etxera iristeko irrikatan. Oskar Arana

Itsua hatzak arin-arin ibiltzen hasi zelarik, soldaduak ere **arinka-arinka** hasi ziren jira eta buelta. Felipe Juaristi

Wolfek, artean zerbait askoz ere larriago gertatzear zegoela susmatzean, handik hurbil zegoen metro-sarrerara jo zuen **arinka**. Josetxo Azkona

Pare bat minutu itxaron eta alde egin nuen, ez bat eta ez bi, neska gaixoa besoetan, lehenik berriro urrats **arinka**, harik eta berriro arnasgabetu nintzen arte. Joxe Austin Arrieta

Arnasari buelta eman eta aurrera jarraitu nuen hartxintxar-galipotezko errepide hartan barrena, lehenik urrats **arinka**, gero motelago, gero eta motelago; oinutsik nindoan. Joxe Austin Arrieta

2 *arin-arinka*

Mikel Strogoffek **arin-arinka** zeraman zaldia, bera kanpo eta barne hartzen zuen ezinegon bortitza abereari sentiarazten ziola oso-osorik. Karlos Zabala

Itsua hatzak arin-arin ibiltzen hasi zelarik, soldaduak ere **arinka-arinka** hasi ziren jira eta buelta. Felipe Juaristi

Arin-arinka igo du solairu bat eta beste ate batetik atera da eskailera nagusira. Joxemari Iturralde

3 *arinka-arinka*

Berehala, biolina salto eta jauzi hasi zen, eta soldaduak, kapeluak jantzirik, esku larruak ipinirik, bata bestearen atzetik jauzi eta salto hasi ziren, pabanaren soinua lagun, Eta, itsua hatzak arin-arin ibiltzen hasi zelarik, soldaduak ere **arinka-arinka** hasi ziren jira eta buelta. Felipe Juaristi

---

arinkeria *(ETCn **1.299** agerraldi)* **1** *iz* gauzetan behar adinako arreta edo zentzua jartzen ez duenaren jokaera gaitzesgarria; behar adina pentsatu gabe esaten edo egiten dena.

Gregen "lobulu frontalek" eragindako ezaugarriak -**arinkeria**, hitzetik hortzerako asoziazioak- dibertigarri ziren, baina, horrez gain, zintzotasuna, sentiberatasuna eta izaera atsegina nabarmentzen ziren haien artetik. Xabier Olarra

Kontraste handia sortzen du **arinkeria** horrek aberri kontuetan sumatzen den begirunearekin. Jon Arretxe

Bere izkribuen irakurleak, horiek epaitzean, ez diola **arinkeria** edota ausarkeria aurpegiratu behar, ez eta presaz mintzatu delako salaketarik egin behar, berak ezer ez dakien gauzez hitz egin duelako; aitzitik, iritzi egiazkoak sortu eta jakinarazteko grina eta ardura aitortu behar dio, berau egitea gizakien ahalmenean den neurrian bederen. Xabier Kintana

Esaten zuen, gainera, emakumeekin hitz egiten jardutea **arinkeria** zela, aitortzako sakramentuan edo arimaren salbamenari buruzko aholkuak emateko izan ezik. Askoren artean

Une batez, zinta-karrera ahaztea ere pentsatu nuen, **arinkeria** bat zirudielako hirurok ahotan edukitako gaien ondoan. Bernardo Atxaga

-Lasai egon nintekeela esan dit, berak ez ei dio Grauri esango bere emaztearekin oheratzen naizela, horixe esan dit -aitortu zenion **arinkeria** itxuratuz. Koldo Izagirre

Hala adieraziko banio haserretu egingo litzaidakeela, ohe pasa erraza bilatzen dutenen **arinkeria** leporatuz. Pako Aristi

Gregen ahots eta portaera, umore eta gogamena izango zituen; ez, ordea, haren "arima" edo "izatea" edo "sakontasuna": txotxongilo bat zen, eta haren txantxazaletasuna eta **arinkeriak**, berriz, gertatutakoaren larritasunaren kontrapuntua. Xabier Olarra

Askotan egoten zen tarteko egoera batean, erdi ametsetan bezala; orduan, pentsamenduaren kontrola eta aukeramena galtzen bazituen, fantasiarako eta **arinkeriarako** erdi askatasuna erdi konpultsioa gailentzen zitzaizkion. Xabier Olarra

Nire maistrarekin izan nuen harremanak bestelako irudi bat eskaini zidan, askoz ere amakoiagoa eta espiritualagoa, **arinkeriarik** gabea. Juan Kruz Igerabide

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gizon bakar baten egintzak (zioen) bederatzi zeru kontzentrikoek baino munta handiagoa du, eta **arinkeria** gaitza da hura galdu eta gero berriz itzul daitekeelako ustean erortzea. Juan Garzia

Ume gaixtoek gogaitu egiten ninduten, nire sugar biziarekin **arinkeria** handiz jokatzen zutelako. Eduardo Matauko

Zuzentzailearen **arinkeria** barkagaitzak leporatu zion hoben horretatik libre dela aldarrikatzen dugu. Jon Alonso

Horrelako gauzak ez dira **arinkeria** hutsez edo kasketa batez galtzen, bera Mogueime da, eta Santarem hartu zutenean bertan egon zen, eta kito. Jon Alonso

Arinkeriarik txikienak ere galbidean jar zezakeen. Karlos Zabala

Beren **arinkeriaren** biktima direnen eredu iraunkorra ikusteak askoz ere zirrara handiagoa eragiten dio, zuzendu beharrean gogortu egiten duen oinazearen ikuskizunak baino. Juan Martin Elexpuru

Baina Bawtryko uhalgilea puritano fina eta purua zen, horrelako **arinkerietan** ibiltzeko ez zegoena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Laster ikusi dut margolanak begiratzeko zure manera pausatuak ez duela deus kazetariek ohi duten **arinkeriatik**; ez zara jakitunarena egiten duen turista berripozarin horietako bat ere, garbi daukat hori. Anjel Lertxundi

Zeren alde batera utzi baitugu apika eztabaida honen oinarri-oinarrizko gogoeta; alegia, ekonomilariek gehiegizko **arinkeriaz** alde batera uzten duten etika eta justiziari buruzko gogoeta. Iñaki Heras

3 (hitz elkartuetan)

Ordura arte nazioak erakutsita zeuzkan inpazientzi eta **arinkeri** zantzuak nagusien hautapena edo jokabidea zela-eta; nagusien arteko gorabeherak konpontzen eta bakearen premia haiei inposatzen jarduna zen. Iñaki Iñurrieta

Buru-**arinkeria**, iz. Joera ekinzalearen asetasun errepikatua. Xabier Olarra

4 ***arinkeriaz*** *adlag*

Zuzenbide erromatarra destainez eta **arinkeriaz** gaitzesten duten hainbatek ez dute berori behar adina ezagutzen. Andres Urrutia

Abortua ez da **arinkeriaz** hartu behar. Luis Elberdin

Zin-hitza ez badu betetzen, beraren gain jausiko da bekatua; **arinkeriaz** egiten badu, bi aldiz egingo du bekatu; gezurretan zin egiten badu, ez da errugabe geldituko, ezbeharrez beteko zaio etxea. Elizen arteko biblia

Obedientziapeko agindurik ez da **arinkeriaz** eman behar. Askoren artean

Arinkeriaz hartu ote nuen horrelako asmo hori? Elizen arteko biblia

Hara, Brightman jauna, era honetako salmenta batean ezin da **arinkeriaz** jokatu. Oskar Arana

· Ez litzateke bada amaren aginpidea doilortzea, ez litzateke amaren aginpidea deuseztea aginpide hori **arinkeriazko** jaidura baten peko ezartzea, zeren jaidura horrek liluratzeko duen ahalmena haren beldur direnek baizik ez baitute sentitzen, eta desagertzen baita erdeinatua den orduko? Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arinkeriaz egin (3); **arinkeriaz hartu** (4); **arinkeriaz hitz** (4); **arinkeriaz jokatu** (5); **ez da arinkeriaz** (5)

---

arinki *(orobat **arintki** g.er.) adlag* arintasunez; arinkeriaz.

Gero, **arinki** afaldurik, berriz gelarat joan ginenean, Elena berriz ere musuka lotu zitzaidan. Janbattitt Dirassar

Neskatoaren bularrak **arinki** ukitu zituen bustita zeuden ikusteko. Ibon Uribarri

Arinki hitz egin du, baina bere ahotsa beldurrez beteta dago. Xabier Paya

Arinki hitz egitea baino gauza kaltegarriagorik ez da ezagutzen. Karlos Linazasoro

Garaia, ederra eta indartsua zen; haizekirriak **arinki** harrotzen zion bizar urdina, eta bazirudien aurpegi eder, serio, tristea elur malutaz betetzen zitzaiola. Jose Morales

Ile bustia **arinki** orraztu zuen. Iñaki Zabaleta

Musika gogotik jotzen hasi ziren berriro, eta zorua **arinki** dardaratu zen aretoko oinkaden eraginez. Jose Morales

Ohiturak amodioa sortzen du; zeren, **arinki** bada ere, kank eta kank kolpatzen denak luzera amore ematen du eta gainbehera dator. Xabier Amuriza

Behin edo bitan, alkandoraren eskumuturrei behera tira egin zien esku batekin, bestearekin kapelaren hegalari **arinki** baina irmo eusten ziola. Irene Aldasoro

Gero eta hobeki dabiltzanengan aingeru onak arimari gozoki, **arinki** eta leunki ukitzen dio, belaki batean sartzen den ur-tantak bezala. Patxi Altuna

Ezen Erdi Aro izenekoan erruz baliatzen zela jankintsu jendea fantasiaz, edozein gizon santutzat jotakoren argialdiak dogma bilakatzen zituztelarik txit **arinki** eta komenentziara. Iñaki Segurola

Hamar bat lagun, berriz, **arinki** zauritu ziren, batez ere leherketak hautsi zituen kristal pusken eraginez. Berria - Mundua

Arinki zauriturik atera nintzen autoaren hondakinetatik. Iban Zaldua

Kutz doktorea, aldiz, **arinki** zauritua suertatu zen, eta bere etxean dago honezkero, alta eman baititote. Joxemari Iturralde

197 presuna **arinki** kolpatuak, 22 larriki eta lau hilak. Herria

Bertze autoan Urkoiko gazte bat zen eta hau **arinki** kolpaturik artatzerat ereman dute. Herria

Garai bertsuan, beste esperimentu batzuetan, zartada elektriko txikiak erabiltzen zituzten **arinki** anestesiaturiko txakurren garunak -ageri gorrian jarrita- estimulatzeko. Irene Aldasoro

Arratsaldeon esan zion, zakarki, aurrera segitzeko asmoz, baina Costak besotik heldu zion, bortxarik gabe, gabardinaren maukatik **arinki** tira eginez, Costaren begiak serioak ziren, errukiorrak ia. Jon Alonso

Esku bat aldakan eta beste eskuan makila bat zuela zetorren, lurra makilarekin **arinki** joz. Irene Aldasoro

Haizea izan zitekeen lagun edo etsai, arduragabe edo arduratsu, haserre edo mindu, ero edo zentzudun, soka banatik zintzilik zeuden lau mutil haien bizitzak ere haizea bezalakoak izan baitziren, **arinki** jaioak, **arinki** ibiliak lur eta itsas bideetan barrena, atzera begiratzeko astirik gabe, **arinki** galduak eta haizearen mende, azkenik. Felipe Juaristi

Ene iloba maitea, ez dakit ez ote zaren **arinki** samar jokatzen ari. Antton Olano

Neskak herren egiten zuen **arinki**; mutila makurtu egiten zen ibiltzerakoan, bizkarreko konkorrek beheraka bultzatuko balute bezala. Bernardo Atxaga

Komandantziako lau eskailerak bajatzen hasi orduko behatu zion **arinki** atea zaintzen zegoen guardia zibilari. Unai Iturriaga

Landare-hesitik pixka bat gorago egin zuten hegan eta dantzan **arinki**, eta orduan landare-hesiaren hostoen artetik beste tximeleta bat agertu zen, eta beste bat gero. Ibon Uribarri

Haatik, nun nahi ere eta noiz nahi Lurra ikaratzen da bainan biziki **arinki**, hain **arinki** nun hamarretarik bederatzietan nehor ez baita hanbat ohartzen ere, jakintsunen tresneria bereziek dituzte bakarrik ikaratze ixil horiek kondutan hartzen. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arinki hartu** (3); **arinki ukitu** (5); **bezain arinki** (3); **hain arinki** (3); **zion arinki** (4); **zuen arinki** (4)

---

arintasun *(ETCn **1.524** agerraldi)* **1** *iz* arina denaren nolakotasuna.

Alkimiaren arragoan egiten den aldakuntzarik behinena da beruna urre bihurtzea, hots, zama **arintasun**, makala bizkor, itzala argitasun. Juan Kruz Igerabide

Eiffel dorrearen **arintasun** eta lerdentasuna eman nahi izan dio Fosterrek lanari. Berria - Gaiak

Orain, berriz, baloreak aldatu egin zaizkio, baina gizonak lehengoa izaten darrai, ez zuen inoiz sakontasun larregirik izan, baina **arintasun** hori hain zen erakargarria bizitza arina zenean! Pako Aristi

Bizitza erabat desberdina egiten duen **arintasun** bat, ekintza mekanikoak guk ezagutzen ez dugun bestelako modu batez arautzen dituena. Josu Zabaleta

Gaztetxoek hain gustuko duten snowboardeko taulak bi ezaugarri izan behar ditu: **arintasuna** eta egonkortasuna. Berria - Gaiak

Horrek guztiak **arintasuna** ematen dio liburuari, izan ere di-da batean irakurtzen da osagai txikiez beteriko nobela hau. Berria - Kultura

Ederra zen Obabako harana: freskoak eta gazteak ziren aurreneko muino eta mendiak, hoteletik hurbil zeudenak; goxoak eta bigunak hurrengoak, herri-koxkorrak zein etxe bakartiak babesten zituztenak; urdinxkak, kearen kolorea eta **arintasuna** zutenak, urrun-urrunenak, azkenekoak. Bernardo Atxaga

Justiziari **"arintasuna"** eskatu zion auziak epaitegian zortzi urte daramalako. Berria - Euskal Herria

Oraindik orain hasi dira ingeniariak eskeletoak bere **arintasuna** eta sendotasuna nola lortzen duen balioesten eta imitatzen. Irene Aldasoro

Eta berehala, une hartan bertan, inolako lagungarririk gabe, aingurak ur gainean azaldu ziren, burdinak bere izaera aldatu eta egurraren **arintasuna** hartu balu bezala. Askoren artean

Jakin behar da oso lasterka mugitzen den guztia hegaz adierazi ohi dela, horrela mugimenduaren **arintasuna** irudikatzeko. Xabier Kintana

Eraikuntzok distiratsu ageri dira eguzkipean, dorre zorrotzek zeru urdina edertzen dute, platereskoak airearen **arintasuna** eskaintzen dio harri astunari. Anjel Lertxundi

Arintasuna darie gorputz horiei, hilkortasunaz aske eta sakontasunaz aske balira bezala. Felipe Juaristi

Bestalde, **arintasuna** ez ezik traineruaren forma ere oso garrantzitsua da, estua eta zorrotza bada estabilitate gutxiago izango baitu. Berria - Kirola

Europako beste jendalde guztiek hor segitu zuten ezpata harroaren mendean penatuak, baina guk ez, guk harroa baino maiteago baikenuen eta dugu hutsartea, eta hutsartearen **arintasunean** eta babesean igeri bizitzea. Iñaki Segurola

Pisuen joerak, izan ere, gorputzen amodioak bezala dira, grabitateak beherantz eramaten ditu, **arintasunak** gorantz, maitasunak gogoa noranahi daroan era berean baitaroa pisuak gorputza. Imanol Unzurrunzaga

Koruak Giovanni Gabrieliren kantata bat txirikordatu zuen, eta musikari ahots haien **arintasunak** liluraturik, doinuak ez baitu gorputzik ez lurrera lotzen duen kargarik, ahots haien garbitasunak malkoak isuri arteraino hunkiturik, begiak musikaren gozamenak lausoturik, belarria musikaren lumaje zuriaz gorturik, eskuak musikaren distiraz erreak bezala geldi ezin, aurrera egin zuen harlauzazko plazako zorutik barrena. Felipe Juaristi

Gure gorputzak ere substantzia hartan blai zeuden, eta substantziaren **arintasunak** arintzen gintuen eta substantziaren argiak argitzen. Joan Mari Irigoien

Pinpirinak bai, nonahi eta noranahi airatzen direnak, askatasunaren sinbolo, **arintasunaren** ikur, hisialdi batak edo besteak han edo hemen pausatzen dituela. Piarres Aintziart

Hau ez da **arintasunerako** baliabide erretoriko huts bat edo halako zerbait. Xabier Amuriza

Arintasun gehiegia sentitzen nuen gorputzaren eskuin aldean. Harkaitz Cano

Era arrunt baina sendoan esateko, amestutako eraikuntza intelektual bikaina gorantz zihoan aparraren **arintasunaz**, eta gorakada hark benetako jakintzaren teilaturaino jarraitzeko adina indar zeukan. Bernardo Atxaga

Ikus-entzunezko komunikabideek irabazi egin diote **arintasunean** prentsa idatziari, albistea ahalik eta arinen ematearen borroka galdua du. Berria - Euskal Herria

Arintasunez mugitu zuen baloia zelai erdian, eta arrisku handia sortu zuen kontraerasoan. Berria - Kirola

Kosta egiten zitzaidan mingaina **arintasunez** mugitzea, lehorra eta oretsua sentitzen nuen. Aritz Gorrotxategi

Inoiz ez bezalako **arintasunez** iritsi da munduko idazlerik ezagunenetako baten nobela berria euskal letren plazara, gaztelaniazko, katalanezko eta galizierazko letren plazetara iritsi den une bertsuan. Berria - Kultura

Beldurrez nengoen, noski; baina, aldi berean, arindurik sentitu nintzen; jasan ezin den itxarote baten ondoren izaten den **arintasuna** neukan, baloi bat puztu eta puztu, eta

azkenean lehertzen denean bezala. Juan Kruz Igerabide

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Herrenka ez, baina **arintasun** handirik gabe. Elurrak erortzerakoan duen **arintasun** berbera du plazer-une bakoitzak. Berria - Kirola

Amodio osteko poza sentitzen zuen, zelanbaiteko **arintasun** ezohikoa pausokeran. Josu Landa

Izatearen **arintasun** jasanezinak oro berdinduko gaitu, sasoi-beteko nahiz elbarri, aberats nahiz pobre, zoriontsu nahiz dohakabe, azken argiaren zantzuan. Karlos Linazasoro

Nork aipatu zuen izatearen **arintasun** eramanezina? Jon Muñoz

Ez nuen ezeren falta nabaritzen, **arintasun** arraro bat baizik. Harkaitz Cano

Gogaitasunaren pisu astuna, bai; porrotaren agindu ikaragarria, bai: joan hadi hemendik; ezinaren nekea ere bai; baina ez inoiz orain sentitzen duen **arintasun** harrigarria; sentimen gozoagorik azken hilabeteotan! Pako Aristi

Poz-**arintasun** maltzurrez jasaten genituen anoa-murrizketa eta ikatzik gabeko etxeetako hotza. Juan Garzia

Une batez gorputza airean geratzen zitzaidala ere iruditu zitzaidan, **arintasun** ilun batean zintzilik, erortzearen itsumenak eragin ohi duen histasun horretan bilduta. Juan Kruz Igerabide

Haren esku potolo arrosa-biziek **arintasun** bigunez ukitzen zituzten okelak. Karlos Zabala

Norak dibertiturik begiratu zion, hain berea zuen erbinude baten **arintasun** urduria begi-ninietan jolasti: [...]. Anjel Lertxundi

Etxe eta jauregiak ziruditen, batzuk besteen gainean jarriak, metalezko babilonia bat, **arintasun** hindukoa, hutsaren gainean egindako terraza esekiek, aireko korridoreek, zubi hegalariek zeharkatzen zutena. Karlos Zabala

Hondartzara jaitsiko balitz bakar-bakarrik paseatzera, ez litzaioke inongo irudi eskura etorriko zerbitzatzeko itxuraz eta **arintasun** zerutiarrez, gaua ordenean jartzera eta munduari arimaren mugak isladaraztera. Anton Garikano

Estreinako kopak halako **arintasun** bat sortu zidan buruan. Anjel Lertxundi

Huts hori da, hain zuzen, "gauzaren absentzia" hori, Mallarmé-k dioen moduan, hizkuntzari halako **arintasuna** eta halako indarra ematen diona. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kanpoko ornamentazioan, hala ere, bazituen *Art Nouveau*-ren motibo batzuk, egiturari sotiltasun eta **arintasun** airea ematen ziotenak. Patxi Iturritegi

Hain zuzen liburuaren orrietan barneratzen den irakurleak **arintasun** sentimendua izango du, irakurtzean idazlana osatzen duten 36 istorioak bata bestearen ondoren pasatzen direla irakurketa zamatu gabe. Berria - Kultura

Hau da Stanleyk logelen itxurari egindako ekarpen bakarra; eta ekarpen horrek aldatzen du guztia, eta ematen die inguru hitsei zolitasun eta **arintasun** ukitua. Oskar Arana

Astuntasunaren intentsitatea masaren eta bolumenaren, hau da, pisuaren eta erditik azalera dagoen distantziaren araberakoa denez, zalantzarik gabe ateratzen da ondorioz **arintasun** egoera dela nagusi planeta horretan. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Buruko min deitu litezkeenak, ez, baina askotan sentitzen dut -bolada batzuetan, ia egunero- buru-**arintasun** halako bat noizean behingo ziztada ez oso zorrotzekin. Anjel Lertxundi

Beste neska-mutilen artean ba omen zen batetik bestera arin, sotil, etengabe aldatuz igarotzen zen zerbait: esanahi-truke bat, negoziazio bat, ulermen **arintasun** bat; guztiak telepatikoak ote ziren pentsarazteko bezain nabarmena inoiz. Xabier Olarra

Ekonomi onura eta kultur **arintasuna** *Diktat* politiko honen aldekoak izan arren, Joseren hizkuntz politika hutsegite negargarria izan zen. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arintasun bat** (4); **duen arintasun** (3)
> **arintasuna eman** (3); **bere arintasuna** (3)

---

arintgarri ik **aringarri**.

---

arintki ik **arinki**.

---

arintxo *izond adkor* apur bat arina.

Mutikoa ongi zegoen; inoiz edo behin sukar **arintxoren** bat izaten zuen, baina garbi ikusten zen hobetzen ari zela. Josu Zabaleta

-Guardia dugu, anaia Juan -esan zion barneko ikasleetako batek-; otordu **arintxo** bat egiteko zertxobait emango diguzun eskatzera etorri gara. Josu Zabaleta

Borreroak, aldi bakan batzuetan, exekuzio garaian ezin izan du eiakulazio **arintxo** bat ekidin. Karlos Linazasoro

- **Arintxoagoa** ere egitea bazuten, gurutze hau. Koldo Biguri

Arintxoago tratatu beharko da, jakina... Josu Zabaleta

---

arintzaile *(orobat **arintzale**) izond* arintzen duena.

Ikasteak, pentsamenduz oldartzeak, munduaren galdezkatzeak, izpirituaren zabaltzeak eta bazterren otserbatzeak sufrikario guztien **arintzaile** egingo zaitu, biktima plantatik aldenduz. Itxaro Borda

Hau ere izan dugu: iloba andere gazte batek omenez eta esker-onez jo dion musika alai eta goxozko omenaldi eta esker ona, dena ere joaiteko doluaren **arintzale**. Herria

---

arintzale ik **arintzaile**.

---

arintze **1** *iz* pisua edo zama gutxitzea.

Konparazione, zure bizitegian obra batzu egin-eta, ardiesten ahal duzu mozkin-zergaren **arintze** zerbait. Herria

Urriaren 13an lege horren **arintze** bat bozkatua izan da deputatuen lege biltzarrean. Herria

Batzuen arrangura, bereziki ezkerraldean, **arintze** hori jende xeheak ez duela biziki sendituko (edo batere!). Herria

Deputatuek onartu dute **arintze** hori. Herria

Arintze horri hola apailatuz, gobernua tematzen da kargutan sartu orduko hartua zuen bidetik. Herria

Gainerat, **arintze** horrekin gobernua oraino gehiago urruntzen da Europa mailean hartu neurrietarik; jadanik ere horren gainetik adituak dituelarik erasia batzu...! Herria

Izaiten ahal dira ere zerga **arintze** batzu. Herria

Kutxek eta bankuek kudeatzen dituzte banakakoak, eta errenta gehien duten bezeroak erakarri dituzte, trukean errenta aitorpenean egiten zaizkien zerga **arintze** handiak

direla eta. Berria - Harian

2 ***arintze aldera*** *adlag* arintzeko.

Liburutegi ibiltari baten moduan ibiltzen omen zen beste presoen kartzela-aldia **arintze aldera**, harik eta naziek hil egin zuten arte. Anjel Lertxundi

Euri artifiziala eragiteko asmoa dute Txinako agintariek, egoera **arintze aldera**. Berria - Gaiak

Gastuak **arintze aldera**, hainbat gela eta bulego kentzeko aukera zegoela esan zuen Navarro Baldewegek. Berria - Kultura

Eskolak **arintze aldera**, Zenonen alegiatxoa konta diezaiekezu: Akilesek ez du inoiz ere dortoka harrapatuko, hura harrapatzeko egin behar duen distantziaren erdia egiten duenerako dortokak, apurtxo bat bada ere, aurrera egin izango duelako bere bidean. Joxerra Garzia

1.500 lagunentzako herri bazkaria ere prestatuko dute, auziak eragingo dituen gastu ekonomikoak **arintze aldera**. Berria - Harian

Hitz batean, nobelaren eskeletoari eutsi diot, narrazioa **arintze aldera**. Joan Mari Irigoien

Hori ere saldu dut, horra, mina **arintze aldera**. Juan Garzia

3 ***zerga arintze***

Eta aprendiz gehiago izan dadin, dauka behar dutela gehiago irabazi, hartuko dituzten nagusiek aldiz **zerga arintze** batzu ardietsiz denbora berean... Herria

Kutxek eta bankuek kudeatzen dituzte banakakoak, eta errenta gehien duten bezeroak erakarri dituzte, trukean errenta aitorpenean egiten zaizkien **zerga arintze** handiak direla eta. Berria - Harian

Pentsio planak dituztenek jasotzen dituzten **zerga arintzeak** ere bere horretan utzi nahi dituela adierazi zuen atzo Juan Jose Mujika Gipuzkoako Fiskalitate eta Finantzarako diputatuak. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arintze aldera** (9); **arintze hori** (3); **zerga arintze** (4)
>
> **arintzea da** (4); **arintzea ez** (3); **zergen arintzea** (6)
>
> **arintzeko asmoz** (3); **arintzeko balio** (5); **arintzeko balioko** (3); **arintzeko ez** (4); **arintzeko modu** (4); **arintzeko neurriak** (4); **hori arintzeko** (3); **horiek arintzeko** (3); **kalteak arintzeko** (11); **lana arintzeko** (3); **mina arintzeko** (15); **minak arintzeko** (3); **nekea arintzeko** (5); **nekeak arintzeko** (3); **oinazea arintzeko** (3); **ondorioak arintzeko** (5); **sintomak arintzeko** (4); **sufrimendua arintzeko** (3); **trafikoa arintzeko** (4); **uztarria arintzeko eskatu** (4); **zama arintzeko** (14); **zion uztarria arintzeko** (4)

---

arintzearren *adlag* arintzeko, arintze aldera.

Apar lehertuak plai ertzeko hondarrean lagatako itsasbelar, konpresa, plastiko eta lata hutsak, Neptunoren opari; berotasunak **arintzearren** zihoazenen eta freskatu zirelakoan zikinago zetozenen harat-honat aspergarri eta funsgabea. Xabier Mendiguren Elizegi

Atzera bakarrik utzi nindutenean hasi nintzen desgogara boltsetan miatzen, ez zerbait falta ote nuen, komuneko satsa **arintzearren** Vim erosi barriaren bila baizik. Koldo Izagirre

Gogoratzen naiz ukuiluetako azpiak ateratzen ari ginen goiz batean pazientzia galdu eta maldizio batean hasi zela, gure kide andaluziarrak harrituta uzteko moduan hasi ere, eta nik, giroa **arintzearren**, ez kexu izateko esan niola, arrosarena bezain ederra zela simaurraren usaina. Bernardo Atxaga

Dendan edo laborategian igarotako arratsaldeek zamatzen zioten burua **arintzearren** baino, usadioari zegokion gabana jantzi eta kalera irten beharra zen hura. Josu Landa

Bihotza **arintzearren**, prest nintzen naski, bertan debalde bezain arriskurik gabeko, dena ere on, transfer sentimental baten bideratzeko. Itxaro Borda

Egia erran edozein konpromisoetarako prest nintzen, gauaren bakardadea **arintzearren**. Itxaro Borda

Baraurik, burua **arintzearren**. Edorta Jimenez

Hark helmugako aterpetxeen inguruko erreka ziztorren pribatutasuna nahiago, eguneko izerdia **arintzearren**. Aingeru Epaltza

Gero, gupida izango du alabak, eta bestetaz galdezka hasiko zaio segur aski, giroa **arintzearren**. Imanol Zurutuza

Eta hala, neke hori nolabait **arintzearren**, Biblia sakratua hartu zuen eskuetan. Jon Alonso

Maiz gelditu behar izan nuen, sorbaldak bularrean sartu eta bizkar gaineko tentsioa nolabait **arintzearren**. Joxan Elosegi

---

arinxago ik **arinxeago**.

---

arinxeago *(orobat **arinxago** g.er.) adlag* apur bat arinago.

-Barkatu baina -esan zion Stanislaus Dembak-, **arinxeago** ibili beharko duzu, denboraz larri naiz eta. Anton Garikano

Nahiago nuke **arinxeago** ibiliko balitz. Iñaki Mendiguren

Arinxeago, bihotza. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lehen hau **arinxago** joan da halere, Duhau emeki berotzen da askotan eta Etchetok ez du egun haundienetako hetarik atera. Herria

---

arinxko *adlag* arin samar.

Urria bukatu da ekarriz larrazken itxura goxoa; gure usozaleak ilun aire batekin dire menditik jausten, alportxa **arinxko**, beti bezala biharamunaren itxaropenaz gaindituak. Herria

---

ario 1 *izond/iz* ariarra.

Bai, bere manupeko gizonak, akatsik gabeko gazte **ario** haiek, borrokatzeko makina itsuak izanen ziren, gaindiezinak, baina aldi berean erlijio berri baten sinestunak, paganismo berriaren aldarrikatzaileak? Alberto Ladron Arana

Edozeinetara ere, herrialde **ario** eta zelten jaiegunetako ospakizunak San Migel mendietara pasatu ziren. Pello Zabala

Nazien teorien arabera, kultura eta usadio alemanak, arraza **arioaren** ondare genetikoarekin batera, arrisku bizian zeuden. Alberto Ladron Arana

Judu batek nola ba **ario** bati irabazi! Anjel Lertxundi

Oso berezkoa da gugan haztea denetan guretarrek irabazteko desioa, eta Raimundo Silvari, kide den nazioaren gorputzean mairuen odol gehiago dagoela **ario** lusitaniarrena baino susmaturik ere, gustatu zitzaiokeen On Jôao Peculiarren dialektika txalotzea. Jon Alonso

Ario perfektuaren iruditzat neukan nik. Anjel Lertxundi

Kasta sistema orain 3.500 urte hasi zen, **ario** taldeak Asia Erdira heldu zirenean. Gotzon Garate

Irakek inguruan dituen herrialde arabiarrak (Iran **arioa** da) nagusiki sunitak dira biztanle xiitak eta bestelakoak asko badira ere. Berria - Harian

Labana bat emakume baten esku hauskorretan ez zen borrokari germaniar bat beldurtzeko gauza, esku horiek lur langintzan eta azienda zaintzan ohituak egonik ere, germaniarra ezbairik gabe jakitun izango baitzen bere leinu **arioaren** gehiagotasunaz. Jon Alonso

Berak **arioak** ziren, ni ez. Anjel Lertxundi

Commendatore jaun honek ere hasiera-hasieratik frogatu zuen berriketan astirik galtzen ez zuen klasea zela: orduan jabetu nintzen, hain zuzen, italiar **"ario"** askok juduekiko tratuan erakusten zuten presa-modu nabarmen hori ez zela halabehar hutsezkoa. Juan Garzia

Artikulu horien ideia nagusia zera da, Alemaniako erro kulturalak paganismo **arioan** bilatu behar badira ere, ezin dela ahantzi Kristautasunaren ekarpena. Alberto Ladron

Arana

Ea ordu arte bizitza normala egin nuen **arioen** artean, ez zuela ulertzen nola iritsi nintzen haraino judua nintzela jakin gabe. Anjel Lertxundi

Behiek eginkizun handia betetzen zuten **arioen** artean. Gotzon Garate

Orain dela bi urte, Ekialdeko Prusian, Ahnenerbeko arkeologoek antzinako **arioen** herrixka baten aztarnak aurkitu zituzten. Alberto Ladron Arana

2 ***arraza ario***

Nazien teorien arabera, kultura eta usadio alemanak, **arraza arioaren** ondare genetikoarekin batera, arrisku bizian zeuden, inguruko kulturen eta azpi-arrazen eragin kaltegarriaren ondorioz -andrearen ezpainak mespretxu keinu adierazgarri batez okertu ziren. Alberto Ladron Arana

---

ariora ik **arabera**.

---

ariotar ik **ariar**.

---

arista **1** *iz* bi planok elkar ebakitzen duten lerroa; gauzaki baten ertz zorrotza.• (irud/hed gisa)

Soinu aberatsa eta lasaia dauka orkestrak, **aristarik** gabea. Berria - Kultura

Broad Peak-eko hegomendebaldeko **aristatik** jausi zela esan zion Lucasi eta ezin izan zuela gailurra egin, hurrengoan beharko zuela. Unai Elorriaga

---

aristokrata *izond/iz* aristokraziari dagokiona, aristokraziakoa; aristokraziako kide den pertsona.

Pariseko parrokia **aristokrata** batetako bikarioak ostiko bat ederra bildu zuen, ontsa lerrokatua ez zelakotz-edo. Marzel Etxehandi

Amaren aldeko aitona **aristokrata** nuen, dotorezia handikoa, frantsesez eta alemanez natural hitz egiten zuen. Karlos Zabala

Don Tomas, herriko sendagile **aristokratak** eramaten zuen bezeria aberats guztia. Josu Zabaleta

Are harrigarriagoa gerta dakiguke ikustea frantziar **aristokrata** zoliaren *jeu d'esprit* politikoa arrazazko mito bihurtzen dutela germaniar neobarbarismo demoniakoaren igarleek. Iñaki Mendiguren

-Wittgensteinek austriar **aristokraten** planta dotorea dauka, nabaria denez -azaldu zion ahapeka, eta irribarrez, Russellek-. Fernando Morillo

Eta hire gaztaroko erromatar **aristokratek** burua zertxobait apaldu badute, mafiako buruzagiak bihurtu dituk Palermo, Catania edo Corleoneko tirano berriak. Jon Muñoz

Betiko publiko aisia zale eta **aristokrataren** belarriak heroien eta jainkoen istorioekin gozatu ordez, Hesiodok eguneroko bizitzara eta gizon arruntaren jardun--nekeetara zuzendu zuen begirada. Anjel Lertxundi

Aristokrata haize-buru probetxugabe horietako bat. Matías Múgica

Bi kasinotako kidea zen, maila oneko jendearekin eta **aristokrata** batzuekin adiskide-harremanak zituen, eta bizi ziren Atocha kaleko etxearen administratzailea zen. Josu Zabaleta

Aristokrata zela antzeman nion. Koro Navarro

Sarako herriak etengabe aihergo nabariena agertu diola Iraultzari; herri honetan denak **aristokratak** direla. Elena Touyarou

Aristokratak besteetatik bereizten dituena, zera baino ez da: hain kezkaturik egotea beren genealogiaz, ezen ardurarik handienaz egiten baitiete kontu xehetasunei. Juan Garzia

Poloniar **aristokrata** baten tankera eta, harrigarria bada ere, emakume juduena zuen aldi berean. Koro Navarro

Haien artean baziren kopeta estuko eslabiarrak, odolean Inperioko ezaugarri eta bereizgarri guztiak nahastuak dituztenetarikoak; bazeuden hamar urteko **aristokratak**, gogo makal, begi urdin eta begirada galdukoak, beren arbasoek beren ordez dena haiek ikusi balute bezala begiratzen zutenak. Xabier Olarra

Artistak, **aristokratak**, politikoak, dirudunak eta nazioarteko ospetsu ugari. Patxi Iturritegi

Tailerretako **aristokratak** dira, nolabait esateko. Pedro Alberdi

Karlos Ohandokoa eta haren ikaskide batzuk, beren burua **aristokratatzat** zuten karlistak, Katxo hura babesten hasi ziren, zirikatzen eta Martinen kontra xaxatzen. Koro Navarro

Politikan ere badaude, gizartean bezala, nahiago dutenak **aristokraten** klubera kafea hartzera joan, nahiz eta han garestiagoa izan. Berria - Euskal Herria

Aristokraten ustean, literaturgintzak ez zuen beren mailari zegokion duintasunik. Jon Muñoz

Hitlerrek enpresa-gizon handiekin, **aristokratekin** eta betiko handi-mandiekin darabilen politika ez da nire kezka-iturri nagusia. Alberto Ladron Arana

Hala gertatzen zen ia beti: **aristokraten** edozein gehiegikeria edo jokaera desegoki diruak konpontzen zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hala, don Ottavio bihurturik, **aristokraten** jauregi honetan hartu nian bizilekua. Jon Muñoz

Nahasketaren erantzule nagusia, Gabriele D'Annunzio, Italiako idazle **aristokratetan aristokratena** eta, aldi berean, populistetan populistena. Berria - Kultura

Garai batean Frantzian Versalles izan zela gogorarazten didan **aristokrata** taxuko neska honek zenbait lekutan egin dio trenari bisitaldia. Edorta Jimenez

Soluzioa, beraz, jende jaun agintariaren indibidualismo eta despotismo diziplinatuan dago, politika anarko-**aristokrata** arras berri batean. Joxe Azurmendi

---

aristokratiko **1** *izond* aristokraziari dagokiona, aristokraziakoa.

Felix Felixovitx Yusupov San Petersburgon jaio zen 1887. urtean, familia **aristokratiko** eta aberats batean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ingalaterra osoko eskola pribaturik sonatuena, familia **aristokratikoetako** semeak baino onartzen ez zituena. Julen Gabiria

Joseph Rothen pertsonaia **aristokratikoek** (noble, militar eta burgesek) gor izan nahi dute gertakizunekiko; nahiago dute itsuak izan sistema zaharrari egiten ari zaizkion pitzadura, zirrikitu eta itoginen aurrean. Anjel Lertxundi

Oso izaera gorabeheratsu eta aztoragarria zuen, sentipen **aristokratiko** eta plebeiozko nahaste ezin eramanezko bat. Josu Zabaleta

Jatorri **aristokratikoko** idazleak. Bernardo Atxaga

Ea benetan den hain sakona ahizparengandik bereizten duen amildegia, ahizpa bere etxe **aristokratikoko** hormen artean hesiturik bizi baita, iristezin, hango kobre distiratsuarekin, kaobarekin, tapizekin eta burdinurtuzko zurubi usaintsuekin. Jose Morales

Etika homerikoa beste etika bat da, etika **aristokratikoa**, filosofiaren munduan jardun behar duenak ezagutu behar duen etika hori. mugimendu politiko batek, helburutzat baldin badu masaren ideia demokratikoaren ukazioz, herririk hoberenari, gizakirik gorenari beraz, mundu hau ematea, logikoki behar du halaber herri horren barruan printzipio **aristokratiko** berberari men egin eta gidaritza eta influentzia gorena herri horretan bururik hoberenei ziurtatu. Askoren artean

Andre gaixoak handinahikeria **aristokratiko** barregarriak erabiltzen zituen. Josu Zabaleta

Urruntasun **aristokratikoaren** aieru zen nolabait, senar-emazteen harreman minari inolako haragizkotasun-kutsurik ez zeriola iradokiko balu bezala-. Mirentxu Larrañaga

Parisko Krapotkin banintz bezala, aharrausika hasi nintzen, egia esan nekearengatik, baina bai eta harrokeria **aristokratiko** batengatik ere. Matías Múgica

Eskuin **aristokratikotik** heldu zitzaion hatsa enpresari: 20 milioi euro. Iñigo Aranbarri

Zenbait goiargik Putzu-ren soiltasun formala mespretxuzko imintzio **aristokratiko** batez arbuiatzen du Haren buruargitasunagatik maite zuen, haren bihotz-zabaltasunagatik, haren gizon-edertasunagatik, halako lurrin **aristokratiko** berezi bat zeriolako, beti. Markos Zapiain

Betiko desagertu diren iragan garaietakoak dira, ez XX. mendekoak, haren gizarte-kontuen arbuioa, marfilezko dorrea, exotismo estetikoa, dotorezia **aristokratikoa**. Anjel Lertxundi

Robespierrek ateismoa eta antiklerikalismoa suntsitu nahi ditu, erlijioa eta kultua indarberritu, zeren eta, haren hitzetan, "ateismoa **aristokratikoa** da". Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zalakaindarrak bizi ziren baserriaren jabeak ohandotarrak ziren, Urbiako familiarik zaharrena, **aristokratikoena** eta aberatsena. Koro Navarro

Bizitza guztian ez nituen hain esku noble, **aristokratikoak** ikusi. Anton Garikano

Erromantizismoaren lekuan kokatzen dela, hots, lekurik irrazional, erlijiotsu, antihistoriko eta **aristokratikoenean**. Bernardo Atxaga

2 irud/hed

Hitza **aristokratikoa** da, eta ez du baliokide xuxenik gure hizkuntzan, baina bere esanahirik hurbilena "zerri hegalduna" da. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aristokratikoa da (3); **etika aristokratikoa** (3)

---

aristokratismo *iz* aristokratikoa dena balioesteko eta herrikoia dena gutxiesteko joera.

Aristokratismoa, elitismoa, komenentzia bat baino gehiago, lege natural bat iruditzen zaio Ortegari, ez dago zertan auzitan jarri. Joxe Azurmendi

---

aristokrazia **1** *iz* agintea pertsona multzo txiki baten eskuetan dagoen gobernu era; handikiek osaten duten klase soziala.

Herri xehea eta **aristokrazia**, biak ere diruaren, jokoaren, kirolen, nazionalismoaren, arrakastaren eta publizitatearen adoratzaileak izaki, berdin-berdinak iruditzen zitzaizkion ia. Juan Garzia

Euskal literatura normaldua bultza eta kontsumi zezakeen **aristokrazia** eta burgesiarik eza eta klase dirudunaren euskaltzaletasun faltagatik. Berria - Harian

Pedrok eta Augustok bakoitzak bere inperioko **aristokrazia** erabili zuen administrazio-egitura ekumeniko bat eraikitzeko material gisa, baina arrazoi desberdinak zituzten. Iñaki Mendiguren

Bati lehentasuna edo babesa ematen zaion momentuan, berdintasuna desagertu egingo da gobernutik, eta teokrazia berpiztutik laster **aristokrazia** jaioko da berriz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aristokraziak gaizkiaren ezaugarri oro arbuiatzen du: makurkeria, koldarkeria, iluntasuna, ahultasuna, distiragabetasuna, taldetasuna eta abar. Askoren artean

San Petersburgoko **aristokraziako** dama dotore eta aberatsei. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lamelaren ezkutuko sekretua enamoratuta egotea zen, baina egiaz enamoratuta, **aristokraziako** emakume batez, Errege Antzokiko palkora kotxez joaten zen emakume tituludun batez. Josu Zabaleta

Goi mailako eta baita **aristokraziako** gazte jendearekin ibiltzen zen aspalditik, diru ugari, lan arazoez kezkatu behar ez, eta dolce vita alkoholarekin eta drogekin leuntzen zen giro nagian babesturik. Joxemari Iturralde

Hain boteretsua bera, nazioko politika esku harroz eta gogorrez zuzentzen, eta andrea, **aristokraziako** familia ximurtu bateko alaba. Juan Martin Elexpuru

Aristokraziako idazle bat etorri zait gogora lan horretako pertsonaia nagusiaren harira. Berria - Kultura

Hemendik dator oso eredugarria ez den kristautasun modernoaren paper politikoa: hemeretzigarren mendean monarkiarekin eta **aristokraziarekin** elkartu zen demokrazia liberala salatzeko; hogeigarren mendean demokrazia liberalarekin elkartu zen totalitarismoa salatzeko. Iñaki Mendiguren

Uste dut **aristokrazian** izugarri sofritzen ari direla gaur egun gaitz hori. Antton Olano

Aitak bai baitzekien, alabak baino lehenago, **aristokraziaren** eta tradizio handiko aberatsen ezaugarrietako bat bilduma partilularrak egitea zela. Joan Mari Irigoien

Arkitektoentzako erronka bilakatu ziren bainuetxeak eta **aristokraziaren** eta boteredunen atseden leku bilakatu ziren gehienak. Berria - Euskal Herria

Hurtado errepublikaren aldekoa zen, Montaner erregeren familiaren aldekoa; Hurtado burgesiaren etsaia, Montaner aberatsen eta **aristokraziaren** aldekoa. Josu Zabaleta

Gure kideek, joera klasistak dituzten gehienek bezalaxe, **aristokraziaren** ukitu distiratsuarekin hornitu nahi zuten beren burua. Bernardo Atxaga

Parlamentua bera ere itxuraldatu egin zuen erabat: Lorden Ganbera (jauntxo eta **aristokraziarena**) desegin, erregetza sekulako baztertu; errepublika izendatu. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Augustok eta haren ondorengoek funtzionario zibil onak atera zituzten erromatar negozio-gizon harraparietatik; Han Liu Pang eta haren ondorengoek **aristokrazia** txiki feudal harraparitik atera zituzten. Iñaki Mendiguren

Egoera ekonomikoa hondatzen hasi zenean, mehatxupean gertatu ziren nekazarien askatasunak ere, eta **aristokrazia** lurjabeak bere zapalkuntza-indar osoa berreskuratu zuen. Koro Navarro

Bazen gaitasunik gabeko **aristokrazia** Moskovian Pedro Handiak mendebaldar bihurtzeari ekin zionean, eta gaitasun handiko **aristokrazia** Erromatar Inperioan printzerria sortu zen garaian. Iñaki Mendiguren

Ohandotarrak izan ziren luzaroan herriko **aristokrazia** bakarra. Koro Navarro

Espartarren kasuan kasta militarra espartar **aristokrazia** bera zela. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erromako herri-administrazio inperialaren akatsa senadore-**aristokrazia** zaharraren eta diktadura inperial berriaren arteko desadostasuna islatzea zen. Iñaki Mendiguren

Haren begi ergel eta harroputzerako, Errusiako goi **aristokraziako** kidea nintzen: printzea, Krapotkin bat. Matías Múgica

Askorentzat snob bat zen, zenbaitentzat odolkidetasunak eta endogamiak ahuldutako sasi-**aristokrazia** leinu baten azken alea. Jon Alonso

4 irud/hed

Galtzerdiak dituzten bakanetarikoak dira, txaluparien **aristokrazia**. Koldo Izagirre

Zeruko **aristokraziako** kidea. Xabier Olarra

Nolabaiteko "lanaren **aristokrazia** pribilegiatua" sortuko luketela neurri horiek. Iñaki Heras

5 ***goi aristokrazia***

Errusiako **goi** aristokraziako kidea nintzen: printzea, Krapotkin bat. Matías Múgica

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aristokrazia zaharraren (3)

---

aristotelestar *iz* Aristolesen jarraitzailea.

Atomistengandik oso urrun dagoen Gersonidesek uste du kasu horretan atomistek dutela arrazoi, eta ez **aristotelestarrek**. Xabier Kintana

Ez zuten horrela uste izan neo-aristotelismoa bidezki dei genezakeen sistema garatu zuten geroagoko **aristotelestarrek**. Xabier Kintana

Neo-**aristotelestarrek** naturaren legeak sorturiko mundutik sorreraren aurreko errealitatera extrapolatzen dituzte. Xabier Kintana

---

aristoteliko **1** *izond* Aristolesena, Aristotelesen filosofiaren jarraitzailea.

Ezagutzaren eraikina altxatu nahian, sustraiak garbi-garbi gura zituen, inolako kutsu **aristoteliko** edo sen onaren kutsadurarik gabe, batik bat berez egiazkoak izan gabe egiazkoak direla uste ditugun gauza asko arbuiatuz, aurrera egiteko modurik hoberena zalantzazkoa den edozein iritzi, uste edo printzipioren aurka joatea baita. Askoren artean

Erromatarrek ideia **aristoteliko** eta estoikoak jaso zituzten maila teorizatzailean, baina praktikan lege naturala malguagoa zen, etnikoki inperioa konplexua zelako. Askoren artean

Ontologia **aristoteliko** batean, beraz, hiru izaki-mota bereizi ditugu: banakoak, motak eta propietateak (hurrenez hurren, Aristotelesen substantzia lehenak, substantzia bigarrenak eta gainerako kategorietako propietateak). Askoren artean

Esperientzia, bere izatez, oroitze hutsa da, errepikatze hutsa, eta zinez bizi izateak ez du inolako maisurik onartzen, zinez bizi nahi duenak taigabeko aprendiz inorante izan baharra dauka derrior. Horratx **aristoteliko**, eskolastiko, erretoriko, edo nahinolako "konputologo modernillo" batek sekula konprenituko ez dizun gauza. Patziku Perurena

Aita Bartolome **aristoteliko** sutsua zen, eta ez zituen ontzat hartzen, ondorez, osabaren tesiak, ezta haren moduak eta moldeak ere: ez haren ateraldi zorrotzik, ez haren txantxa ausartik, zenbatenaz aita jesuita jauregian sendoago eta errotuago, hainbatenaz gutiago. Joan Mari Irigoien

Maimonek sistema filosofiko bi jartzen dizkigu aurrean: atomista, eta horrekin bukatzen du lehenengo partea, eta **aristotelikoa**, horrekin bigarrena hasiz. Xabier Kintana

Ongi frogatu zuen Kuhn-ek gure fisikarekin ezin dela fisika **aristotelikoa** ulertu. Askoren artean

Bertute **aristotelikoak** hauek ziren: zuhurtzia, justizia, sendotasuna eta neurritasuna. Berria - Euskal Herria

Haiek, Europako astronomoek, **aristotelikoak** zirenez gero, Aristotelesen Fisikaren jarraitzaileak alegia, izarrak aldaezinak zirela uste zuten. Bernardo Atxaga

Erdi Aroko intelektualak logikaren aldetik **aristotelikoak** ziren, baina gainerakoan, ikuspegi teologiko eta filosofikoari dagokionez, inspirazio platoniarra eta neoplatoniarra ziren nagusi haien artean. Askoren artean

Teologiako maisuek eta Parisen Elizako buru zen Tempier artzapezpikuak erabaki zuten, azkenik, sistema **aristotelikoaren** egia kristau-doktrinaren kontra nagusitzen uzteak kristau-kultura mehatxatzen zuela. Askoren artean

Senekaren garaian, lau filosofia eskola ziren nagusi Erroman: platonikoena, **aristotelikoena** eta estoikoena, batetik, elkartze prozesu batean abiatuak, eta bestetik epikurozaleen lorategia, lizun eta zerriak zirelakoan beste hirurek baztertua, nahiz arrazoizkoenak izan ia beti. Markos Zapiain

2 *neo-aristoteliko* ik **neoaristoteliko**.

3 ***printzipio aristoteliko*** *(corpusean ez dago; ETCn **40** agerraldi)*

Abiadura indar motorearekiko proportzionala zela zioen **printzipio aristotelikoa** abiapuntutzat hartuta, Jordanusek pentsatu zuen indar motorea abiadurarekiko proportzionala izan zitekeela. ETC-literatura, saiakera

Bigarren gogoramena da ezen, **printzipio aristotelikoaren** arabera, nik ziurtzat ematen dudala gizakiek barne-hartze printzipioari jarraitzeko goragoko mailako interesa dutela. ETC-literatura, saiakera

Emakumeak eredu maskulinoaren bariazio inperfektutzat jotzen ziren azken finean, **printzipio aristoteliko** eta galenikoei jarraituz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestela esanda, gauzek esentzia bat eta bakarra dutela onartzen badugu, behartuta gaude logika klasikoaren hiru **printzipio aristotelikoak** onartzera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azken kausak eta **printzipio aristoteliko** edo printzipio lehenak, errealitatearen oinarri gisa uler dezakeguna, ezagutzean datza. Metafisika, funtsean. ETC-entziklopedia

Izan ere, biak **printzipio aristoteliko** batetik abiatu ziren: Gobernu formaren egokitzapena herrien izaerara. ETC-entziklopedia

---

aristotelikodun *izlag* ezaugarri aristotelikoren bat duena.

Alde batetik, jatorri **aristotelikodun** hizkuntza sasi zientifiko hori baldarregia irudituko zaie zenbait autore kritikori. Askoren artean

---

aristotelismo *iz* Aristotelesen eta eta haren jarraitzaileen doktrina.

Baina Erdi Aroko filosofiak ere gogoz erabili du filosofia greziarra, **aristotelismoa** neoplatoniar inspirazioarekin osatuz, bien artean sistema teozentriko bat eraikitzeko, bion, kristaufedearen eta arrazoi filosofikoaren bermearekin. Askoren artean

Jakina, erlijioaren galbahean bahetutako **aristotelismoa** garatuko du Tomas Akinokoak. Askoren artean

Biek izan zuten eragin handia, arabiarren artean lehenbizi eta gero kristauen artean, **aristotelismoa** neoplatonismoarekin nahasteko. Askoren artean

Denborarekin gauzak aldatzen joango dira filosofiari dagokionez, **aristotelismoaren** gorakadarekin. Askoren artean

---

aritenoide *izond/iz* laringean kokaturiko bi kartilago txikietako bakoitza.

Izan ere ahoskorda deitzen diren horiek laringean dauzkagun ezpain itxurako tolesdura haragitsuak dira, kartilago **aritenoideen** eta kartilago tiroidearen artean luzatzen direnak (tiroidearen ertza -hizkera herrikoian "intxaurra" deitzen den hori- ongi nabaritzen da gizonezkoen lepoan). Kontsonantearen ondorengo bokalak nahitaezko duen AHOTSA ekoizteko, ahoskordek elkarrengana hurbildu beharko dute, **aritenoideen** mugimenduaren laguntzaz. Lourdes Oñederra

Hala **aritenoide** bien artean bakarrik gelditzen da airea igarotzeko pasabidea. Lourdes Oñederra

---

aritmetika **1** *iz* matematikaren atala, zenbakien nolakotasunez eta haiekin egin daitezkeen eragiketa oinarrizkoez -batuketaz, kenketaz, biderketaz, zatiketaz, berretzeaz eta erroa ateratzeaz- diharduena.

Nik ez nuen ulertzen **aritmetika**, ez nintzen gauza taula pitagorikoa ikasteko. Fernando Rey

Ezin dezakegu bikote-frogaren aldaera jakin bat erabili gramatika-teoria semantikaren menpekoa dela defendatzeko, hizkuntzalaritza **aritmetika** edo astrologiaren menpean dagoela defenda ezin daitekeen modura. Itziar Laka

Geometriak irudiak aztertzen ditu; **aritmetikak**, zenbakiak; trigonometriak, angeluak; mekanikak, berriz, irudien mugimendua eta oreka. Jon Muñoz

-Zenbaki oso eta arrunten zientzia da **aritmetika**: 1, 2, 3... Aljebra, berriz, ekuazioen zientzia da. Jon Muñoz

Gure protagonistak segundo bat baino gehiago ez zuen behar izan kontuak egiteko, eta berehala esan zuen-: Hogeita lau errublo eta laurogeita hamasei kopek! -laioa zen **aritmetikan**. Jose Morales

"Bi zenbaki oso bikoitien batura zenbaki oso bikoiti bat da", esate baterako, **aritmetikako** esaldi bat da. Jon Muñoz

Angelu baten sinua zenbaki bat delako eta zenbakiak **aritmetikaren** baitakoak direlako. Jon Muñoz

Samoseko Pitagorasek - **aritmetikaz** eta geometriaz arduratu zenak- proportzioak aurkitzen ditu leku orotan, espiritu matematikoa -neurria eta zenbakia-, harmonia, berriro: [...]. Askoren artean

Arazoa sakona eta konplexua da, eta nekez argitu daiteke **aritmetika** soilaz. Iñaki Heras

Bi gorputzek, beren biluztasunaz harrituak bezala, beren neurriko **aritmetika** binario ttiki bat asmatu dute eta -paperezko teorietan ezinkizun dena- deduktiboki osabete, eta, hori aski ez dela, bukaera post-axiomatiko asebetegarri batez errekurtsiboki bedeinkatu, biak goxoki, unibertsitateko arratsalde urduri haietan bezalaxe. Iñaki Segurola

Aritmetikaren bitartez eraikinen kostuak kalkulatzen dira, neurrien arrazoiak ikusarazten dira, eta proportzioaren arazo zailak ere geometriako metodoekin eta arrazoiekin konpontzen dira. Santiago Iruretagoiena

Zailki dei lekieke dogmak **Aritmetikaren** edo Geometriaren esakuneei. Lehengoari ekin nahian **aritmetika** elektorala lantzeak eta distantzia laburreko esgriman aritzeak ezingo die emaitza onik ekarri, ez epe laburrera ez luzera. Ibon Uribarri

Ikastea gustuko zuen eta orduak pasa zitzakeen **aritmetika** ariketak osatzen. Itxaro Borda

Ikurrak solasgai harturik, eta ikurrak merkataritza-**aritmetikako** tratatu batean jaio zirela kontatu zion Jonathanek Léari. Jon Muñoz

2 ***aritmetika modular*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Eta bere artean pentsatu zuen ea bikien ahalmen bitxiek (eta mugek) ez ote zuten islatzen horrelako **aritmetika "modular** " baten erabilera. ETC-literatura, saiakera

Algoritmoa modu formalagoan adierazteko sasikodea erabil daiteke. Kasu honetan, "x;--; y" adierazpenaren esanahia "x zati y eragiketarekin lortutako hondarra" da (ikus **Aritmetika modular**). ETC-entziklopedia

3 *aritmetika politiko*

Zehaztasun matematikoaren ordez probabilitate-kalkulua sartu behar da **aritmetika politikoan** . Juan Martin Elexpuru

4 *merkataritza-aritmetika*

Ikurrak **merkataritza-aritmetikako** tratatu batean jaio zirela kontatu zion Jonathanek Léari. Jon Muñoz

---

aritmetiko 1 *izond* aritmetikari dagokiona, aritmetikan oinarritzen dena.

Haren ustez, biztanleak progresio geometrikoan biderkatzen dira munduan, baina janariak ekoizteko gaitasuna progresio **aritmetikoan** bakarrik. Pello Salaburu

Baldin eta, Marieren oinak txikiak izanik, gorpuarenak ere txikiak balira, gorpua Marierena zelako probabilitateak ez ziren proportzio **aritmetikoan** ugalduko, proportzio geometriko edo metatzailean ugalduko ziren. Koro Navarro

Hasi abstrakzio geometrikotik eta eraikuntza materialeraino iritsiz, eta tartean hartuz neurrien konkrezio **aritmetikoa** . Santiago Iruretagoiena

Honi silogismo **aritmetikoa** esaten zaio, zeinean, logika eta aritmetika konbinatuz, ziurtasun bikoitza lortzen dugun eta bi aldiz zoriontsu egiten garen. Xabier Olarra

Besterik gabe, kalkulu **aritmetikoak** egitea adibidez. Ramon Saizarbitoria

"Makina **aritmetikoa"** esaten zioten garai hartan. Jon Muñoz

Euklidesek bi magnituderen arteko erlazioa ezarri nahi du, magnitude horiek geometrikoak izan (lerroak, azalerak nahiz bolumenak) zein **aritmetikoak** izan (zenbakiak). Jon Muñoz

Zeroa da -konparazio **aritmetiko** bat erabiliz- heriotzaren horizontea: ezereza eta atsedena, alegia; depresioarena, aldiz, zenbaki gorriak dira -zeroaren azpitik daudenak, beraz-, ondoeza eta ezinegona ondorio dituztenak eta bizitza zerbait negatibo bihurtzen dutenak. Joan Mari Irigoien

Gizakiok ez gaude, ez fisikoki ez psikikoki ez espiritualki, progresio **aritmetikoaren** baitan bizitzeko prestatuak, gure mugak aski apalak dira. Karlos Linazasoro

Denborak zenbatekoarekin eta jarraitasunarekin harremana dauka, eta zerbait **aritmetikotzat** jo genezake; espazioak, ordea, edo horren faltak, hutsak alegia, hedadura materialarekin dauka zerikusirik, eta zerbait geometrikotzat jo daiteke. Xabier Kintana

2 *adierazpen aritmetiko*

Beraz, proportzioaren erabilera zuzena, Vitruvioren ustez, ordinatio, ordenazioa, deitzen den ezaugarri jadanik arkitektonikoan ulertu behar da: proportzioaren **adierazpen aritmetikoa** , modulu jakin batetik abiatutako kantitate konkretuetan. Santiago Iruretagoiena

3 *batezbesteko aritmetiko* *(corpusean ez dago; ETCn **209** agerraldi)*

Batezbesteko aritmetiko sinplea, besterik gabe **batezbesteko aritmetiko** ere deitua, estatistikan maiz erabiltzen den batezbesteko eta zentro-joerako neurri bat da. ETC-entziklopedia

Trenez, automobilez eta hegazkinez lortzen den abiaduren arteko **batezbesteko aritmetikoa** hartzen badugu zifra gisa, esan dezakegu orduko ehun kilometrokoa dela, eta zaldi bidezko lokomozioaren garaian, berriz, orduko hamar kilometrokoa zen. ETC-literatura, saiakera

Tarteen eskalak aurrekoen (eskala nominal eta ordinala) eragiketez gain, **batezbesteko aritmetikoa** , desbiderapen tipikoa eta ANOVA edo test parametrikoak onartzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

A eta c zenbakien **batezbesteko aritmetikoari** batezbestekoa esaten zaio, besterik gabe: haien baturaren erdia. ETC-zientzia, zuzenbidea

2005-2006 ikasturte honetako parte-hartzaileen etekin akademikoaren **batezbesteko aritmetikoa** (amaierako nota) 5,65ekoa izan zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Banaketa normala funtzio simetriko bat da, erdigunean baitu maiztasun maximoa, **batezbesteko aritmetikoa** dagoen puntuan, hain zuzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lortutako zatiki bakoitzari, diametro baliokide bat egokituko zaio: partikula zein baheren artean harrapatuta geratu den, horien sare-begien zuloen arteko **batezbesteko aritmetikoa** egokituko zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Datuak grafikoan ezartzea -ikusizko metodoa- egokiagoa da **batezbesteko aritmetikoa** kalkulatzea baino, grafikoan erraz ikus baitaitezke lerro zuzenarekiko desbideratzeak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mullikenen eskalan, atomo baten elektronegatibotasuna da atomoaren ionizazio-energiaren eta afinitate elektronikoaren arteko **batezbesteko aritmetikoa** . ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *batezbesteko aritmetiko haztatu* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Batezbesteko aritmetiko haztatua edo batezbesteko haztatua datuei "haztapen" edo pisu ezberdina ematen dien batez besteko aritmetikoa da. ETC-entziklopedia

Lehenengorako, **batezbesteko aritmetiko haztatua** erabiliko dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *batezbesteko aritmetiko sinple* *(corpusean ez dago; ETCn **87** agerraldi)*

Batezbesteko aritmetiko sinplea , besterik gabe batezbesteko aritmetiko ere deitua, estatistikan maiz erabiltzen den batezbesteko eta zentro-joerako neurri bat da. ETC-entziklopedia

Ezkerrerako alborapena edo alborapen negatiboa dagoela esaten da, datu gehiago daudenean **batezbesteko aritmetiko sinpletik** gora behera baino edota, bestela esanda, mediana **batezbesteko aritmetiko sinplea** baino handiagoa denean. ETC-entziklopedia

Hau da, desbideratze estandarra **batezbesteko aritmetiko sinpleaz** zatituz kalkulatzen da. ETC-entziklopedia

Hain zuzen, bariantzaren erro karratu positiboa desbideratze estandarra da, eta azken honek datu bakoitza **batezbesteko aritmetiko sinpletik** zenbat desbideratzen den adierazten du. ETC-entziklopedia

6 *progresio aritmetiko*

Haren ustez, biztanleak progresio geometrikoan biderkatzen dira munduan, baina janariak ekoizteko gaitasuna **progresio aritmetikoan** bakarrik. Pello Salaburu

Gizakiok ez gaude, ez fisikoki ez psikikoki ez espiritualki, **progresio aritmetikoaren** baitan bizitzeko prestatuak, gure mugak aski apalak dira. Karlos Linazasoro

---

aritmetizatze *iz* aritmetiko bihurtzea.

Aljebra **aritmetizatzea** : ezezagunari aplikatzea aritmetikak zenbakientzat bakar-bakarrik erabiltzen zituen eragiketak (--, -, x,:, erro karratuak aurkitzea). Jon Muñoz

---

aritmetizazio *iz* aritmetizatzea.

Aljebraren **aritmetizazioa** . Jon Muñoz

---

aritmologia *iz* zenbakien zientzia.

Eta munduaren kontzepzione berri honetan eta magiarekin zerikusirik ez duten numeroen errealitate horretan -zeren eta ni ez bainaiz Ficino edo Pico della Mirandolaren eskolakoa eta ez baitut **aritmologia** mistiko misteriotsurik sinesten-, goia eta behea eta koadroaren alde guztiak mugimenduak lotzen ditik... eta arestian aipatu numeroen zurrunbiloek lotzen ditiztek. Joan Mari Irigoien

---

aritmomantzia *iz* zerbait zenbakien bidez igartzeko metodoa.

Aritmomantzia : Zenbakizko balioa duten zenbakien edo hizkien bidez egiten den igarpena. Iñaki Mendiguren

Baina zehatz-mehatz **aritmomantzia** zergatik zen zoragarria, Harryk sekula ez zuen jakin. Iñaki Mendiguren

Nahasirik eta kezkatuta, ikasgaien zerrenda irakurtzen ari zen mihia aterata, eta jendeari galdezka ea, beren ustez, **Aritmomantzia** zailagoa izango ote zen Antzinako Errunen Ikasketa baino. Iñaki Mendiguren

- **Aritmomantziak** beldurgarria dirudi -esan zion Harryk, oso nahasia zirudien zenbaki-taula bat hartuta. Iñaki Mendiguren

Hermioneri erantzuteko Ronek ahoa mugitu zuen, baina hitzik esan gabe; Hermionek bere poltsa zabaldu, **aritmomantziako** liburu berria atera eta zuku-pitxerraren kontra jarri zuen zabalduta. Iñaki Mendiguren

Gaur goizean Vector andereñoarekin, **aritmomantziako** eskola ematen duen sorginarekin, hizketan entzun dut. Iñaki Mendiguren

Eskola hori zabor hutsa izan da nire **Aritmomantziako** eskolaren aldean! Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aritmomantziako liburu** (3)

---

aritu, ari(tu), aritzen *(orobat **artzen**)* **1** *(orobat **artzen**)* ari izan.

Ni ere hala **aritzen** naiz; ez lasterka itsu-itsuan egiten duena edo ukabilkadak hutsean jotzen dituen borrokalaria bezala; Elizen arteko biblia

Lo mío es escribir irakurri ondoren, ostera, emakumezkoen literaturaren balioez **aritzeko**, nahitaez nazioartean arrakasta lortu behar ote den itaundu nion neure buruari. Ana Urkiza

Ez zuen gogorik berriro agureen jolas itsusi haietan **aritzeko**, eta, gainera, Egutxi ez zegoen tokia bisitatzen zuten beste agureak bezain eltzartuta. Ibon Uribarri

Azokako arrain saltzaile bat jarri zaio ondoan, postuan **aritzeko** amantalarekin eta laneko katiuskekin. Paddy Rekalde

Ohandok ukabilkada batekin erantzun zion, heldu zioten biek elkarri eta lurrera erori ziren; mutur-joka **aritu** ziren, baina Martinek, bestea baino indartsuagoa baitzen, behin eta berriz eraisten zuen aurkaria. Koro Navarro

Herria esnatzen denean, goizaldean, idien marruak aditzen dira; gero, apretagileek espaloira ateratzen dute bankua, eta arotzak kalearen erdian **aritzen** dira lanean, umeteriaren, oiloen eta zakurren ondoan. Koro Navarro

Etxean geratzen da amarekin, eta bere zuhaitz gainean eseri eta han **aritzen** da Oranges and lemons, Laranjak eta limoiak, kantari, eta barreka. Mirentxu Larrañaga

Ez da abiapuntu txarra kontu-jaten **aritzeko**. Arantxa Iturbe

Gure bila etorri aurretik, gela tapizatzen **aritu** zen, beraz. Juan Kruz Igerabide

Hitzei buruzko jardun horrek hitzak osatzen dituzten silabez eta hizkiez **aritzea** dakar berekin, eta hitzak batuz sortzen diren esapideez ere. Iñaki Arranz

Aztarka **aritzera** behartu dut neure burua, neure bilbo horien bila. Iñigo Aranbarri

Zaila zen esatea non **aritzen** zen. Jon Alonso

Baina ni goizero jaisten naiz haiekin, bai, eta hamaiketakoa egin bitartean besteei buruz gaizki esaka **aritzen** gara. Patxi Zubizarreta

Bidaia luzearen nekea arintzeko **aritzen** ziren, itxuraz, egiteko hartan. Anjel Lertxundi

Hildako horiek horrela uztea subertsioaren alde **aritzea** da. Koldo Izagirre

Greoffrey de Monmouth izan zen Arturrez **aritu** zen lehen historiagile garrantzitsua. Juan Kruz Igerabide

Alfertuegi zeunden zeure begiei berriz ikusten irakasten **aritzeko**. Hasier Etxeberria

Nire nagusiek, zerri alaenak, niri leporatu zidaten zalapartaren erantzukizuna: "Ardura gehiegizkoa bere egitekoan **aritzean"** idatzi zuten Udaltzaingoak ireki zuen espedientean. Aingeru Epaltza

Lorian egoten nintzaion begira oihal-begiak eta botoi-zuloak prestatzen, bularretakoei eutsi eta agerian ez gelditzeko tiranteen azpiko lokarri txikiak sartzen edo, artilea edo zeta zikindu eta orban itsusi bat utz ez zezan, galtzarbeko transpirazioa hurrupatuko zuten kuxin txikiak josten **aritzen** zen bitartean. Joxan Elosegi

Orain EAEri buruz **arituko** gara. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ingurumeneko auziez **aritzeko** modurik egokiena herritar interesatu guztiek dagokien mailan parte hartzea izango litzateke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Herrian lanean **aritzen** ahal haiz turkoaren pare, ez duk sekula ez eskerrik, ez saririk eta ez ohorerik, etxe onetik ez baldin bahator! Itxaro Borda

Gero patioan erdaraz egiten dugu eta futbolean **aritzen** gara, batez ere Beñat eta ni. Alberto Barandiaren

Neurri batean interaktiboki inprobisazioaren garapenean partaide izatea, gainerako entzuleekin gertakizun publiko batean esku hartzen **aritzearen** sentsazioa konpartituz nolabait. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Igande arratsaldea poliki-poliki igaro zen Agustina, Amaia eta Leire solastatu, kartatan **aritu** eta tarteka telebistari begira egon bitartean. Aitor Arana

Eta **aritzeak** berak, zerbait egiteak, giharrien indar eta abileziaz, barneko minetik garbitzen ninduten. Piarres Aintziart

Ni neskatila nintzen eta hura gure aitari arbiak erosten **aritzen** zen ordurako. Karlos Zabala

Mari pertxenta, marmarti, desatsegin hutsa da; nagusikeriatan **aritzen** da; azpikeria zalea, gezurti amorratua. Josu Zabaleta

Gai honi buruz **aritzean** maiz aipatu ohi den adibide bat muinoarena da. Josu Zabaleta

-Aski du lanean **aritzea**. Elena Touyarou

Putakumea, orain ere zer edo zer makinatzen **arituko** duk. Pablo Sastre

Noizean behin gu ttarttarrean eta jostaketan **aritzen** ginen gelara azaltzen zen aita, mesfidati eta bekozko ilunez, eta amari kexuka joaten zitzaion gure neskame Natalinak liburuak desordenatzen omen zizkiolako. Fernando Rey

Baina gerrilla komunikatiboan **aritzeko** ausardia ere behar da. Txema Ramirez de la Piscina

Eta ez ahaztu, udatzenetik negurakoa izaten zela amodio kantu lizunotan **aritzeko** garairik oparoena, etxe barrengo lanak eta auzofestak zirela medio; eta hain juxtu, garai horretan deus guti ikusiko duzu ingurumariotan loretan, otea bera bezain nabarmen. Patziku Perurena

Garai hartan, ordea, Lehen Mundu Gerrara joan behar izan zuen, Frantziara, Ingalaterraren alde **aritzera**. Agustin Otsoa

Kargu hartzen **aritzen** zitzaidan beti, "ni zaharragoa omen nintzela" edo "zaharragoaren plantak egiten omen nituela". Jon Muñoz

Itzalean 30 gradu direnean, orduak joan eta orduak etorri, lurrin artean **aritzea** ..., atera kontuak! Jesus Mari Mendizabal

Nire gurasoek elkar askorik maite ez dutenez, arratsero oihuka **aritu** beharra dute; eta, ez baitakite nola hasi, nitaz baliatzen dira, nire nota txarrez. Jesus Mari Mendizabal

Hegazkinetik jaitsi garen hamaika bidaiariak, maleta-garraioan **aritzen** diren langile bakan batzuk eta zigarroa erre beste zereginik ez duten bi polizia: besterik ez dabil Caselle aireportuan. Anjel Lertxundi

Haren etxearen inguruan txoriak sagarrondoan pausatu ohi zirela kontatu zidan, mihura aleak jatera, eta kantari **aritzen** zirela; bada, haiexen kantuaren pareko iritzi nien Maisuaren doinuei. Edorta Jimenez

Eta, handik aurrera, baloia hartu eta kalean edo zelaietan **aritzen** zuan Di Stefano, eta **aritzearen aritzeaz**, baloia guztiz bere esanetara jartzea lortu zian, batean kulunkarazten zuela, bestean lotaratzen, eta hurrengoan bala bat bezala jaurtitzen... Joan Mari Irigoien

Ana gupidagabe **aritzen** zen halako kontuetan sartuz gero: Iñaki Iñurrieta

Ikasleok laguntzen genion dena txukuntzen, eta neguan basotik egurra ekartzen genuen berogailurako, eta teilatuko elurra kentzen **aritzen** ginen. Juan Kruz Igerabide

Bestela? Badakizu hemengo supermerkatuetan denak ezezagunak zaizkidala, hemengo kafe etxeetan berorika **aritzen** direla, hemengo zaharrak traktoreetan dabiltzala oraindik, errepideetan txirrindulariek bide osoa betetzen dutela. Lander Garro

Ez zen aski izan hilarrien artean larrutan **aritzea**, zizelkariaren semea zelatan zegoela. Anton Garikano

Gero Alemanian **aritu** nintzen, ikasle edo, unibertsitatean behintzat. Joxerra Garzia

Nola nahizka **aritu** zen. Ramuntxo Etxeberri

Katek, zakurrarekin jolasean **aritzeaz** nekatuta, lo hartu du eta ez du hasieran deus ikusten. Harkaitz Cano

Bat bi hiru urrats ateraino joan, bat bi hiru urrats leihatilaraino jin, bat bi hiru lau urrats, laburragoak egiten baditut... bat bi hiru lau... bat bi hiru lau... Leihatilako sarean egin ziminokeriek ene gorputza iratzarri dute eta, joan-jinka **aritzeaz** enoatzen hasten bainaiz, beste soinketa batzuk asmatzen ditut. Filipe Bidart

Gainerakoan, bera **arituko** da sukaldean, neska, aulki batean eserita, begira dagokiola. Oskar Arana

Han-hemenka galdetuz, jakin ahal izan zuen dama hura Alida Blanca zela, burdingintzan **aritzen** zen Migel Igartuaren emaztea. Martin Anso

Ez, ez jauna! Begira: honela jantzita zergatik nengoen pentsatzen ez **aritzeko** esan nionean, badakizu zer erantzun zidan berak?: "A, jakina! Ba, ken dezagun, ken dezagun bizkor-bizkor jantzi hori! ". Josu Zabaleta

Alta, badirudi XXI. mende hasieran mundu osoan ofizialki onartuak diren giza eskubideak begiratzen ez dituzten gaiztaginen epaitzeko auzitegiak irekitzen zaizkigula eta auzitegi horiek lanean **aritzeko** gogoa badutela. Piarres Xarriton

Batzuetan, arratsean batez ere, kartetan **aritzen** ziren suren baten alboan lagun talde txikiak, kartak zikin banaturik esku zikinetan. Joseba Sarrionandia

-Bakarrik **aritzen** naiz lanean - azaldu zuen -. Koro Navarro

Eta badaki bere bizkarrean askotan txantxetan **aritzen** direla kontu horrekin. Jokin Muñoz

Ez din merezi bueltaka **aritzea**. Fernando Morillo

-Goian, gauez, insomnioa dutenak "entretenitzen" **aritzen** dira... Agurtzane Juanena

Badakigu, hala ere, gerra amaitu bezain laster Francok Primo de Riveraren gorpua El Escorialera eramatea agindu zuenean, hilobi zaintzan **aritu** zirela besteak beste: Jose Maria de Areilza, Agustin Aznar edo Leopoldo Panizo. Edorta Jimenez

Paraje aparta zen arrantzan eta bainuan **aritzeko**, karramarro bilketa egiten genuen hango harriagan, Ilurgitako zulora azaltzen ziren bikote bakanek urrunagora hartzen zuten gu ikusitakoan. Koldo Izagirre

Egon beti baitaude argudioak bidegabekeriaren aurka **aritzeko**, hordagoka jokatzeko. Hasier Etxeberria

Eseri eta gutun amultsu bat idatzi nuen: Saito jaunak plazer handiz hartu zuen igande hartan Johnson jaunak berarekin golfean **aritzeko** gonbitea eta goraintzi adeitsuenak igortzen zizkion horrenbestez. Joxan Elosegi

-Bai, noiz edo noiz **aritzen** naiz etxekoekin edo lagunen batekin - erantzun dio, galderaren nondik norakoari igarri ere egin gabe, eta isilik geratu da, jarraipenaren zain. Imanol Zurutuza

Bezperan bertan, ordura arte idatzitakoa entseatzen **aritu** omen zen lagunekin. Imanol Zurutuza

2 *aitzurketan aritu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Kasualitatez aurkituko zuen **aitzurketan ari** zela? ETC-literatura, saiakera

Deabruak harentzat propio lurpean ezkutatu zuen, eta egun batez, baratzean **aitzurketan ari** zela, Dometiosek aurkitu. ETC-literatura, saiakera

3 *ardatzean aritu*

Ardatzean ari zen, burua makur. Gotzon Garate

4 *arrantzan aritu*

Errekaz beherantz jo nuen lasterka eta zuhaizpean egon nintzen zain, elkarrekin **arrantzan aritu** ohi ginen leku berean. Mirentxu Larrañaga

Bera, Gordon Johnson, Mel Dorn eta Vern Willimas, pokerrean, bola jokoan, **arrantzan aritzen** dira. Koro Navarro

Hala, **arrantzan ari** nintzela pasatu zunan beltz bat nire aurrean flotatzen. Anton Garikano

Gabarra batean hiru gizaseme ageri, zirudienez **arrantzan ari**. Txillardegi

Gizonezko bat hil da Lazkaon, **arrantzan ari** zela lau metroko zubi batetik erorita. Berria - Euskal Herria

Arrantzaren alorrean, atzerriko ontziek Mendebaldeko Saharan **arrantzan aritzea** ez da espreski nazioarteko legeriaren aurkakotzat jo. Berria - Mundua

Azken urteotan, bestalde, arraste **arrantzan aritzeko** beste sistema bat zabaldu da. Berria - Gaiak

"Bi neska gazte errekan **arrantzan ari** zirela, mutil bat etorri zitzaien seduzitzeko asmotan. Pablo Sastre

Eta gero, barku batek jo zuen bera zihoana, Bretainiako kostalde horretan **arrantzan ari** zirela. Bernardo Atxaga

Paper artean **arrantzan ari** naiz, esku-arrantzan. Jokin Urain

-Lehengo arrats batean, gaua baino ordubete lehenago edo, **arrantzan ari** nintzen aintziraren ertzean -esango luke lurralde bakartiren batetik etorritakoak begiak larrituz. Bernardo Atxaga

Batzuetan **arrantzan aritzen** ziren, pita amuarekin luzatu eta han egoten ziren, aitaren ofizioa ikasten eta aitaitarena. Joseba Sarrionandia

5 *arraunean aritu*

Ez gara orain artean batera **arraunean aritu**, baina daramaten denboraldia eramanda, agian, hortxe-hortxe egon gintezkeen. Berria - Kirola

Orain arte, azken lau estropadetan izan ezik, klubek 22 osatu arte nahi adina arraunlari sar zitzaketen euren taldean, betiere urte horretan bertan beste klub batean **arraunean aritu** ez badira. Berria - Kirola

Aita **arraunean aritzen** zen zarauztarren traineruan, "Golondrina" izeneko hartan. Xabier Etxabe

Nabigatzen doanean, jarri egiten da, baina zutik joaten da **arraunean ari** denean. Julen Gabiria

Volgako Batelzainen musika entzuten zelarik, arnasestuka zetozen aurrealderantz Jonathan-eta-Léa, "heliu han, heliu han", salmo bat bezala abestuz, ontzi-sotoan **arraunean ari** ziren galerianoen egoera zorigaiztokoa musikaren bidez (--!) adierazten ari zirelako uste osoan. Jon Muñoz

Zinez, galera zahar batean **arraunean ari** den galeriano baten bizipenak ez al dira kartzelako galerietan atzera-aurrera dabilen galeriano batenak bezain errukiberak? Anjel Lertxundi

Bost minutu geroago Helen eta biak **arraunean ari** ziren. Bernardo Atxaga

6 *auzitan aritu*

Horregatik, hau diot nik, Jaunak: Auzitan hasi nahi dut berriro zuekin eta **auzitan ariko** naiz zuen ondorengoekin ere. Elizen arteko biblia

7 *irabia eta irabia aritu*

-Odola **irabia, irabia** eta **irabia** aritzen naiz, ezta? -jarraitu zuen mutilak, eskua airean mugitzen zuela esnegaina harrotzeko. Karlos Zabala

8 *kantuan aritu*

Eliztarrak **kantuan aritzeko** zuten geroz eta joera txikiagoaren aurreko amorrua: sinesten badute, pentsatzen zuen Karlosek, zergatik ez dute kantatzen? Iban Zaldua

Ezkongaiak dantzan eta **kantuan aritu** ziren arratsalde osoan. Juan Kruz Igerabide

Harexek eragin zidan beharbada zirrararik sarkorrena, Usher **kantuan ari** zela, orduantxe sumatu bainuen aurreneko aldiz, hitzen esanahiak estali nahi zuen isuri mistikoan, ederki asko zekiela berak hain gora ipinitako arrazoimena zabuka hasia zela bere tronuan. Koro Navarro

Hala eta guzi, itsu paperan ibilitako alfer jende pikaroa erruz izan da, maiz ageri baita "bagabundos y ciegos fingidos" delakoen auzia paper zaharretan, eta ediktoak ere ez gutxi, kopla **kantuan aritzeko** baimena zinez itsu direnei bakarrik emanez. Patziku Perurena

Baina hondo-hondoan, bertsozaleak badaki bere aurrean **kantuan ari** den hura tradiziotik edanda ari dela. Andoni Egaña

Ez dakit zergatik tartekatu zitzaidan irudimenean **kantuan ari** den emakume hori, oraingo emakumeek ez baitute kantatzen ispiluaren aurrean. Joxean Agirre

Lancelot egun osoa otoitzean eta **kantuan aritzen** zen, eta ogia, ura eta mendian bildutako sustraiak besterik ez zuen jaten. Juan Kruz Igerabide

Pentsakor mugitzen zituen eskuak eskularru lasto-koloreen barruan, eta zerbait txistukatzen zuen, basoan **kantuan ari** ziren txorien doinuarekin. Jose Morales

Baina mirabe batzuk **kantuan ari** zirela, neska xarmantak bien kopak bete zituen, eta topa egitear zeudela, ustekabean, herrenari kolpe bat eman zion buruan. Patxi Zubizarreta

Bazkalondoan, berriketan eta **kantuan aritu** ziren. Koro Navarro

9 *kukuka aritu* ezkutaketan jolastu.

-Jakin bahu, hire lagunekin hor ibiliko hintzen, elgar kurutzatzen diren lurpeko pasabide ilun horiek josta leku hautak direla eta, **kukuka** aritzeko, ez? Michel Oronoz

Kukuka ibiltzen ginen North Beacheko aldapetan Ez omen zen gauza ume txiki batekin **kukuka** jostatzeko ere, ez baitzekien zenbat denbora eman behar zuen aurpegia ezkutatuta. Javi Cillero

· **Kukuka,** hain ondo ezkutatzen da, ezen ahaztu egiten baitute. Itziar Otegi

10 ***trikotan aritu*** trikotatzen aritu.

Baratzean artzea, lore apaintzen; **trikotan** artzea; irakurtzen artzea. Menane Oxandabaratz

11 ***txatean aritu*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Txatean aritzeko bide ugari daude, IRC sareak eta bat-bateko mezularitza kasu. ETC-entziklopedia

IRC edo Internet Relay Chat Internet bidez **txatean aritzeko** bat-bateko mezularitza sistema ezaguna da. ETC-entziklopedia

"Bost egunerako soilik noa, erosketa batzuk egitera", aitortu du Zhuk, iPhone 5S baten bidez senarrarekin **txatean ari** dela. ETC-prentsa

Espainiako Astronomia Elkarteak antolatutako emakume astrofisikariekin **txatean aritzeko** esperientzia batean, hain zuzen. ETC-prentsa

Jendeak denetatik egin dezake: sartu, bozkatu, parte hartu, albisteak igo, argazkiak igo, blogak irakurri, **txatean aritu**. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 20 aldiz agertzen direnak)

alde aritu (21); **aldiz aritu** (31); **aritu ahal** (20); **aritu arren** (44); **aritu baitzen** (45); **aritu baitziren** (26); **aritu behar** (179); **aritu behar izan** (41); **aritu beharko** (52); **aritu beharra** (34); **aritu da** (554); **aritu da lanean** (22); **aritu dela** (41); **aritu den** (73); **aritu dira** (343); **aritu dira lanean** (21); **aritu gabe** (20); **aritu gara** (163); **aritu ginen** (157); **aritu izan** (106); **aritu izan da** (25); **aritu izana** (26); **aritu nahi** (59); **aritu naiz** (198); **aritu nintzen** (187); **aritu ondoren** (102); **aritu ostean** (59); **aritu zara** (28); **aritu zela** (86); **aritu zen** (1741); **aritu zen atzo** (59); **aritu zen lanean** (32); **aritu zinen** (21); **aritu zirela** (45); **aritu ziren** (1342); **aritu ziren atzo** (60); **aritu ziren biak** (22); **aritu ziren lanean** (25); **aritu zitzaidan** (20); **aritu zitzaion** (20); **arte aritu** (21); **aurka aritu** (73); **aurka aritu ziren** (25); **aztertzen aritu** (27); **baino hobeto aritu** (20); **bakarrik aritu** (27); **batean aritu** (35); **batera aritu** (35); **bezala aritu** (35); **bikain aritu** (87); **bikain aritu zen** (48); **bila aritu** (77); **borrokan aritu** (41); **buruz aritu** (59); **buruz aritu zen** (20); **egiten aritu** (73); **elkarlanean aritu** (25); **elkarrekin aritu** (28); **ere aritu** (171); **eroso aritu** (24); **ez zen aritu** (20); **ezinean aritu** (52); **fin aritu** (34); **gabe aritu** (67); **gabe aritu zen** (25); **gainean aritu** (20); **gaizki aritu** (79); **gehiago aritu** (23); **gezurretan aritu** (24); **gisa aritu** (35); **gogor aritu** (27); **gustura aritu** (46); **hasieratik aritu** (34); **hizketan aritu** (49); **hobeto aritu** (65); **horretan aritu** (45); **ikusgarri aritu** (22); **inguruan aritu** (25); **irakurtzen aritu** (20); **kontra aritu** (74); **lanean aritu** (130); **lanetan aritu** (72); **luze aritu** (31); **ondo aritu** (143); **ongi aritu** (73); **oso gaizki aritu** (22); **oso ondo aritu** (27); **pattal aritu** (20); **pentsatzen aritu** (32); **prestatzen aritu** (28); **taldean aritu** (31); **txukun aritu** (95); **urtez aritu** (29)

aritua da (22); **aritua zen** (22)

arituz gero (23)

---

aritzale ik **arizale**.

---

aritze *(orobat **artze**) iz* ari izatea.

Urtarrilean taxi-gidari lana utzi zuenez geroztik ez zen auto baten bolante aurrean eseri, eta berriro gidatzen **aritze** hutsak bazirudien suspergarri baten gisa eragiten zuela beraren sisteman. Oskar Arana

---

arizale *iz batez ere ipar* adierazten den gauzan aritzen dena.

Orotarat, 50 bat jente bada maskaradaren üngürün, 45 bat **arizale** dira plazetan agertüko. Herria

Goizeko 10etan, pastoraleko **arizaleen** parte-hartzearekin emanen den mezatik landa, Mauleko kaleetan ibilaldi bat egingo da; aktoreak jantzita eta batzuk zaldien gainean joanen dira. Berria - Kultura

Ihauterietako xaribarietako **arizaleak** iduri, bertze norbaitena jokatzen nuen astean behin, eta nire pertsonaiari ahalik eta fidelena izatera ahalegintzen nintzen. Aingeru Epaltza

Estreinaldi ofizial horretan ez dira agertu lekuko **arizaleak** eta egiazko antolatzaileak, orduan nahi genuen egin zerbait gure kideentzat espresuki. Herria

Zorrozasun handiz eskolatu ditu **arizaleak** eta, egia esan, beraiek dira lehendabizi harrituta egon direnak lortutako mailaz. Berria - Kultura

Arizaleak trebatü beharraz gain, pastoral baten bürüala eramaiteko bada beste trahola hanitx, ikusgarriaren egünean gaüzak oro plantan izan artino. Herria

Bertze bazter batean, bortxatzen ari ziren neska gazte bat; hamar bat zenbatu nituen, **arizalearen**, atxikitzaileen eta txanda zain zeudenen artean. Aingeru Epaltza

20.30 etan, afaria pastoraleko **arizaleekin**. Herria

Zenbait urte geroago, Parisko Gortean antzerki lan bat ikusiko nuen lehen aldiz, eta orduan, **arizaleen** jardunak, haien bozaren goiti-beheitiek bereziki, gogora ekarriko zidaten Zalgizeren irakurraldia. Aingeru Epaltza

Urdiñarbeko maskaradetan bai **arizale** gisa eta bai prestaketa lanetan laguntzen jardun den Marxel Bedaxagar ere bat dator Jean Pierrerekin, eta bide batez Urdiñarbeko dantza maisu handia izan zena ekarri nahi du gogora. Berria - Kultura

Dudarik gabe, **arizale** aparta zen, eta ez dut esaten ironiaz, are gutxiago zinismoz, egiazko miresmenez baizik.Hona iritsita, Berlusgoñi, **arizale** trebatuaren gisan, isilune luzean abandonatu zen. Jon Alonso

---

arizan ik **ari 1**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

aise arizan (7); **arizan baitira** (14); **arizan behar** (13); **arizan da** (95); **arizan dela** (14); **arizan dira** (224); **arizan dire** (8); **arizan direla** (18); **arizan diren** (38); **arizan direnak** (15); **arizan gabe** (9); **arizan nahi** (7); **arizan ondoan** (17); **arizan zen** (12); **arizan ziren** (21); **denak arizan** (7); **ederki arizan** (16); **ederki arizan dira** (7); **gogotik arizan** (17); **gogotik arizan dira** (10); **hor arizan** (7); **hortaz arizan** (10); **kantuz arizan** (12); **laborantzan arizan** (8); **laborantzan arizan da** (7); **lanean arizan** (33); **lanean arizan diren** (10)

pare arizan (9); **polliki arizan** (7)

---

arizkundar *izlag/iz/izond* pertsonez mintzatzuz, Arizkungoa.

Battit BIDART -Kuxkurriok Baigorrira ekar arazten zituela Maurizio ELIZALDE **Arizkundar** txistulari famatua eta biak ARROLA taldeko gazteer mutil dantzen soinu eta urratsen erakastera. Herria

Miguel Alzualde, **Arizkundarra** zen sortzez bainan gazterik Kanbora etorria eta Behereko Plazan plantatua. Herria

Begoña Durruty **arizkundarrak** "Egun aitetxi Ferminekin" komikia plazaratu du, Jorge Oteiza Erakustokiaren laguntzarekin. Herria

Eskatuko zuela Senperena izeneko **arizkundarraren** autopsia. Hasier Etxeberria

Euskaldun batekin ezkondu zen, geroago, Maria Elizalde **arizkundarrarekin**, 1979an. Berria - Kultura

---

arjeliar ik **argeliar**.

---

arjentinar *(orobat **arjentindar**)* ik **argentinar**.

---

arka **1** *iz* kutxa, zurezko, metalezko edo kartoizko ontzi moduko estalkiduna, gauzak gordetzeko edo garraiatzeko erabiltzen dena. ik **kaxa**[1].

Baina bortz axola hiri uholdea eta uholdetik libratu zen **arka**, **arkak** zeraman erbi bikoteagatik ez balitz, ezta? Joan Mari Irigoien

Gau batez Uholde Gaitzaz amets egin zuen, ez baita harritzekoa; **arka** egiten ari zirenen mailukadek iratzarri zuten, eta pentsatu zuen menturaz ostotsak zirela. Juan Garzia

Azbekak, iraupen handi-handikoak; kokandarrak, zaldizkoaz gain, bi denda eta sukaldeko tresneria guztia eramateko gauza direnak; kirgizak, ile-argiak, Enba ibaiaren bazterretatik ekarriak, non **arkan** izeneko lakio tatariarrez harrapatzen diren; eta arraza gurutzatuko beste anitz, kalitate eskasagokoak. Karlos Zabala

Arka galduaren mendia lainoak bilduta egon da goiz osoan, barrenetik gailurreraino. Jon Arretxe

***Arka** galduaren bila* eta *Da Vinci Kodea*-ren estiloko eleberria da hau. Berria - Kultura

Arkaren barne eta kanpo aldea bike urtuz errepasatu zuen. Juan Garzia

Espezie mota bakoitzeko bi animalia gorde zituen bere **arkan** Uholde unibertsalaren eraginez desager ez zitezen. Berria - Gaiak

Eta urak handitu, altxatu, goratu ziren / etxeak, **arkak**, beribilak / flotatzen jarri zirelarik uren gainean. Josetxo Azkona

2 Bibliaren arabera, Noek bere familia eta espezie bakoitzeko abere bikote bana gordetzeko egin zuen itsasontzi modukoa.

Eta **arka** lurretik jaso zen (Has 7,17), hau da, bere lehen adieran, eta bigarrenean: [...]. Xabier Kintana

Arkaren barne eta kanpo aldea bike urtuz errepasatu zuen. Juan Garzia

3 ***haize arka*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Teknika arloan ere aberasgarri izan zitezkeen aurrerapenen ardura ere bazuten; besteak beste, **haize arkak** hobetzeko hainbat pauso eman zituzten, eta Italiatik etorritako berrikuntza batzuetara ere moldatu ziren. ETC-prentsa

4 ***Noeren arka***

Bernard Foing ESAko ikertzaileak azaldu zuenez, Lurra suntsituko balitz, haren aztarna ez litzateke desagertuko era horretan: "**Noeren arka** berri bat izango litzateke. Berria - Gaiak

XXI. mendeko **Noeren arka** . Berria - Gaiak

---

arkabuz *iz* antzinako su arma, fusilaren antzekoa, metxa baten bidez disparatzen zena.

Sotoetan, **arkabuzak** eta mosketeak generamatzan, guk geuk armada oso bati aurre egiteko adina, ene iritzian. Edorta Jimenez

Azkenean, Stede Bonnet maiorrak ezin izan zion gehiago eutsi; eta, hamar kanoi pezako txalupa zahar bat erosirik, pirateriari zihoakion guztiaz hornitu zuen, hala nola ganibetak, **arkabuzak**, abenkak, xaflak, kakoak, aizkorak, Bibliak, ron upelak, argiontziak, aurpegia belzteko betuna, bikea, merkatari aberatsen hatzen artean irazekitzeko metxak eta elemenia bandera beltz beren burezur zuri eta izterrezur gurutzatuekin, eta ontziaren izenarekin: Errebantxa. Juan Garzia

-Ez duk nahi espainola Iruñetik bakez lekutzea, **arkabuzarekin** tiro bakarrik ere egin behar izan gabe? -apezak zaindariari. Aingeru Epaltza

Arkabuza goratxoago jaso nuen, tiro egiteko modu egokiaren bila. Edorta Jimenez

Horretan gelditu gabe, Henrike Albretekoak tiro egin zion bere **arkabuzarekin** Andre Mariaren irudiari. Aingeru Epaltza

Arkabuzari oratu nion eta leihora egin nuen, ontzia Joanikoren aginduz utzi ostean ostatu hartan ezer susmagarririk sumatzen nuen guztietan legez. Edorta Jimenez

Drakeren itzala ez zen gorputz bihurtu, eta ez genuen eduki sotoetatik **arkabuzik** edo mosketerik atera beharrik. Edorta Jimenez

Bazirela hiru eta lau hodiko **arkabuzak** . Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arkabuz tiro** (4)

---

arkabuzari *(orobat **arkabuzero** g.er.) iz* arkabuz batez armaturiko soldadua.

Pikariak, **arkabuzariak**, baleztariak, artillariak... hamar milaka ziren, lurra betean. Aingeru Epaltza

Bortzehun bat pikari eta **arkabuzari**, gaskoiak denak, Agenois edo Quercy aldekoak. Aingeru Epaltza

Hobi berean, **arkabuzari** garaztar bat ehortzi zuten. Aingeru Epaltza

Ez zidan lanik ematen moskete frantses bat eskutan irudikatzeak, tiroka Larrearen **arkabuzariei**. Aingeru Epaltza

Buruan Audaux bera zihoan, lau **arkabuzarirekin** berak ekarrietarik. Aingeru Epaltza

---

arkabuzero ik **arkabuzari**.

---

arkabuzkada *iz* arkabuz kolpea.

Doneztebeko **arkabuzkada** ez zen izan sail luze eta odoltsu baten hastapena baizik. Aingeru Epaltza

Buruz burukoetara etorri gabe, **arkabuzkada** batek jo zuen aitatxiren saihetsa. Aingeru Epaltza

---

arkadia *iz* Antzinako Greziako probintzia baten izenetik eratorria, harmonia ikuspegi idealizatu bat sinbolizatzen duen leku mitikoa.

-Eta **arkadiak**, harkadiak bezalaxe, bizitzeko lekurik onenak ez izateaz gain, iraingarri ere badira. Iñigo Aranbarri

Adin kontua izango da, apika, neu ere hasiko naiz uste baino lehenago neure herriaren bila, neure neurrira egindako **Arkadia**, munduaren esku trakets-zikinak ezin iritsitako leku bikaina. Xabier Montoia

Hamaseigarren mendeko kofradietan ez zen **Arkadiarik**: baina Sebastian protagonista eskandalizatu egiten da horretaz konturatu ahala. Markos Zapiain

Gure **Arkadia** zoriontsuaren bihotz-bihotzean. Anjel Lertxundi

---

arkadiar *izlag* arkadiari dagokiona.

Aspertzeraino ibili nintzen larrugorrian, hura atzetik nuela lasterka gelan barrena, eta nik silfide iheskorraren poseak hartzen nituen eta gutxi gorabehera parnasianoen eta **arkadiarren** eta erromantikoen moduan hitz egiten nuen. Karlos Zabala

---

arkadiko *izond* Greziako Arkadiakoa, Arkadiari dagokiona.

Ez arimen artzain: ardien artzain, eta ez erretorika **arkadikoz** edo burubide bitxiz, pozik eta gustura baizik, lurraren eta belarraren amorez, eta bihotzaren joriz. Juan Garzia

Garai bateko kostunbrismoaren gaitzak deitoratu behar sukartuak eraman ere eraman egin gaitu gure eguneroko bizitzako hainbat pertsonaia natural, esanguratsu eta petoak baztertzera, baserritartasunarekin zer ikusirik duen oro halako alkanfor usain **arkadiko** batez zein tragedia odoltsu tremendista batez blaiturik balego bezala. Anjel Lertxundi

---

arkaiko **1** *izond* antzinako garai zaharkitu batekoa.

Beren parekide teutonikoek ez bezala, arabiar musulman primitiboek zakar astindua zuten beren bizimodu **arkaiko** tradizionala. Iñaki Mendiguren

Egungo egoeraren arrazoia bi eredu horien artean dagoen borroka da: oraindik gizartean errotuta dagoen estilo **arkaikoaren** eta modernitatea ezartzeko dagoen irrikaren arteko borroka. Berria - Mundua

Gogoan duguna ez da aurrezagutza bat edo berehalako ezagutzatik apodiktikora doan egoera **arkaikoa**. Xabier Arregi

Grezia **arkaikoko** lehenengo eskulturak idoloak ziren, jainkotasunaren zentzumenezko agerpenak balira bezala sortuak eta gurtua. Josu Zabaleta

Hiztunak, sarri, ikuspegi diakronikoaren nolabaiteko ezaguera izan ohi du, eta horri esker, atzeman dezake hitz bat **arkaikoa** edo zaharkitua den, edota ebakera jakin bat noiztik finkatua dagoen eta abar. Isabel Arrigain

Mary Balester kaia ertzetik urrundu zen "herrialde pagano atzeratu **arkaikoetako** jendeetaz arras aserik" zegoela oihu etsituka. Itxaro Borda

Kristau Elizako "laikotza" grekozko hitz **arkaiko** batez (laos) izendatu zen. Iñaki Mendiguren

Monastegietako horma zaharrak, ilunpean beltzago, **arkaikoago**; antzinatasunaren lekuko idor. Txillardegi

Legeek baimentzen naute hizkuntzaren elerik **arkaikoenak** eta diren metaforarik katramilatsuenak naharo erabiltzera. Juan Garzia

Hizkuntza **arkaiko** edo ilun batean idatziriko inskripzioak argitu eta esplikatzeko. Isabel Arrigain

-Ez egidak esan kilima egiten ez dianik tonu bibliko latino honek, euskara **arkaikoaren** sintaxian halako sentsualtasun batez bilduta. Iñaki Iñurrieta

Shakespearerentzat ere primitibo, **arkaikoa** zen garai bateko odol-kondaira ikaragarrian laketzeko. Juan Garzia

Mendebaldeko kontsumismoak eta ongizateak eramango du eginkizun hori baztertzera: "sutondoko saltsero" edo filateliko izatea antzekoak izango dira, zaletasun kontu **arkaiko** samarrak, alegia. Edorta Agirre

Holako zenbat mito, euskaltasun **arkaiko** birjin baten gorantzan. Patziku Perurena

Fosil **arkaikoa**. Fernando Morillo

2 garai klasikoen aurrekoa.

Lirika **arkaikoaren** baitan, orobat, konponezina da eztabaida. Askoren artean

Alde batetik, gorde diren testu **arkaikoen** autoritatea ez dagoelako guztiz zehazturik eta, bestetik, autore bakar baten atzean autore bat baino gehiago dagoelako edo, nahi bada, guk darabiltzagun Homero edo Hesiodo autoreak, esaterako, autore askoren bildumatzaileak izan zirelako. Askoren artean

3 ***Aro Arkaiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **66** agerraldi)*

Haien hasierako hiri gutxik iraun zuten **Aro Arkaikoaz** geroztik (edo bakar batek ere ez). ETC-literatura, saiakera

Aro Arkaikoan, zehazki VI. mendean lortu zen filosofiaren autonomizazio-prozesua aztertzea -autonomizazio hori erakusten duten edukiak aurkeztea baino gehiago, agian-. ETC-literatura, saiakera

Aro Lausoari amaiera emanik, **Aro Arkaikoan** Helade berriro sartuko zen historian: aurrerapen ugari egin ziren, gehienak nabigazioarekin, komertzioarekin eta kolonizazioak ekarri zuen polis berriaren egiturarekin harremanean. ETC-literatura, saiakera

Errepublikaren aurreko garaiko aztarnak nahiko urriak dira Erroman, eta, horregatik, "balio handia dute, egoera honetan **aro arkaikoko** aztarnak Erromako erdigunean aurkitzen ditugun lehen aldia delako". ETC-prentsa

Aro arkaiko eta klasikoko greziarrek ez zuten ezagutzen bake-egoera, ezta hitza bera ere; haientzat, borroka-etenaldiak baino ez zeuden, iraupen jakin bateko meniak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antzinako Greziako erlijioaren erritu eta sinismen nagusiak **aro arkaikoan** (K.a. VIII. mende K.a. VIII. eta K.a. VI. mende K.a. VI. mendeen artean) ezarri ziren. ETC-entziklopedia

Egurra **aro arkaikoan** erabili zen batez ere, "xoanak" egiteko (erlijio aurre-olinpikoaren adierazgarri ziren figura landugabeak). ETC-entziklopedia

4 ***euskara arkaiko***

Binomio fantastiko horrexek mugiarazten gaitu gu: gure klasikoengandik jaso dugun tradizio erreformazale / kontrarreformazaletik, egungo literatura egin nahi dugu; **euskara arkaiko** hura egungo literatur euskara mamitzeko baliatu. Iñaki Iñurrieta

---

arkaingeru *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **arkanjelu** agertzen da) iz* kristau erlijioan, izaki zerutiarra, aingeruen gainekoa, Jainkoaren misterioen berri emateko eginkizuna duena. ik **arkanjelu**.

Zorionekoa berori, zeren oinpean hartuko baitu hartza, nola san Migel **arkaingeruak** dragoia. Joan Mari Irigoien

Hala, otoitz egin nion san Migel **arkaingeruari**, Mattinek hartza akaba zezan eta bete zedin, halatan, Ubarneko damatxoaren profezia. Joan Mari Irigoien

---

arkaismo *iz* arkaikoa denaren nolakotasuna.

Testuinguru hartan, **arkaismoa** honela definitu dugu: arazoaldietan, zenbat eta atzerago geratu orduan eta bizikiago deitoratzen -eta agian historikotasun gutxiagoz idealizatzen- diren egoera zoriontsuago haietako batera itzultzeko ahalegina. Iñaki Mendiguren

Napoleonen erretratu erraldoiaren **arkaismoa**. Berria - Kultura

Zeharo saihestu behar dira **arkaismoak** eta gaur egungo euskaran galduta edo galbidean dauden hitzak eta esapideak. Koldo Zuazo

Arkaismoak berpiztu, hau da, euskara zaharreko ezaugarriak berriro erabiltzen hasi, nahiz eta guztiz galduta egon hiztunen eguneroko jardunean. Koldo Zuazo

Egia esateko, dagoeneko aurkitu dugu, **arkaismoaren** eta futurismoaren porrotaz idazterakoan, badela hirugarren aukera bat. Iñaki Mendiguren

Errakuntza "liberal", "modernista" eta "zientifikoen" aurkako atzegoardiako jarduera intelektuala gidatzen zuen bitartean, **arkaismo** politikoaren jarreran erori zen zuhurtzigabe, feudalismoa, monarkia, aristokrazia, "kapitalismoa" eta, oro har, ancien régime-ren alde eginez. Iñaki Mendiguren

Haren **arkaismoa** itxurazkoa baino ez da izango. Iñaki Mendiguren

Euskal Herri gehieneko euskaldunik gehienek erabiltzen zituzten osagaiei eman zien Altubek lehentasuna; ez Euskal Herriko bazter galduren bateko txokokeriei, aspaldi galdutako **arkaismoei** eta hizkuntzan diren era guztietako bitxikeriei. Koldo Zuazo

Porrot-giroak edota, porrot positiboa ez bada ere, hutsalkeriak inguratzen ditu aztertu ditugun **arkaismo**-adibide ia guztiak; eta arrazoia ez da urruti bilatu behar. Iñaki Mendiguren

---

arkaitz ik **harkaitz**.

---

arkaizante *izond* arkaismora jotzen duena.

Mugimendu **arkaizanteak** normalean antzuak gertatzen dira edota aurkako mugimendu izatera igarotzen dira, hots: [...]. Iñaki Mendiguren

Gainera, garbi dago gorputz **arkaizante** bat maitemindu egin dela berearen aldean oso bestelakoa den gauza-egoera batez; bestela, zergatik arkaizatu? Iñaki Mendiguren

Orainaren eta iraganaren arteko beste topaketa-mota, berpizkundeetatik bereizi beharrekoa, guk arkaismo deitu dugun fenomenoa da, hitz hau **arkaizanteen** gizartearen garapenean lehenagoko aldi batera itzultzeko ahaleginak adierazteko erabili dugularik. Iñaki Mendiguren

---

arkakarats *iz* astoarrosa.

Burura datozkit, orobat, nasaileak eta atxaparrak, eta zalkeak, eta kuku-prakak, eta garikota gorriak, eta **arkakaratsak**. Mirentxu Larrañaga

---

arkakosu ik **arkakuso**.

---

arkakuso *(orobat **arkakosu** g.er.)* **1** *iz* intsektu jauzkaria, kolore arrekoa eta oso txikia; mota arruntena gizakiaren odola xurgatuz bizi da *(Pulex irritans).*

Txakur ahulak **arkakuso** asko, esan ohi da. Imanol Zurutuza

Inoren zakurra balakatuz, esker gutxi ta **arkakuso** asko. Gotzon Garate

Zaborrez eta zikinez leporaino, tximitxek, **arkakusoek**, arratoiek eta armiarmek jaten naute; txerriari bezala ematen didate jaten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Esan nahi da ez dela betetzen, balio kontu hauetan, Bernard Shaw-ek elefante eta **arkakusoei** buruz zioena, alegia elefantea, normalean, txikiagoa izaten dela marrazkietan errealitatean baino, eta **arkakusoa**, alderantziz.Hantxe etorri zen zaintzaileetariko bat, bizardunari lepotik eutsi eta **arkakusoak** soinetik kentzera. Bernardo Atxaga

Arkakusoak larrutzera. Aingeru Epaltza

Banoa ganbarara; han dago Peter katuari **arkakusoak** kentzen. Josu Zabaleta

Kleimanek katuarentzako **arkakusoak** hiltzeko pozoia ere ekarri digu. Josu Zabaleta

Arkakusoak azkazalen artean estutu eta hiltzerakoan atera-tzen den soinua egiten zuen dokumentalen hots-bandak oihalean. Anjel Lertxundi

Zakurrak elkarri **arkakuso** kentzen ikusten badituzu, adiskide direla badakizu. Gotzon Garate

Arkakusoak zituen nonbait koltxoiak. Harkaitz Cano

Leku horietan, zakurrek **arkakusoak** izaten dituzte. Koro Navarro

Bidaiari haiek **arkakuso** eta zorriz gainezka ziruditen. Koro Navarro

Gizakiak zomorroak akabatu egiten ditu; **arkakusoak** ere hala egiten ditugu guk, baina ez Txirrita batek: hark "irugarren makilla" badakigu zertarako zuen, andregaiari arkakosuak iltzeko; eta zorriak, salbuespenik gabe, hil egiten ditugu edo genituen, orrazi estua pasata. Iñaki Segurola

Gezurra, gezur hutsa, ez duk orraztu; eta gainera, ziur nagok heure **arkakusoak** pasatu dizkioala. Jose Morales

Abagune polita baita belztasun nihilista merkean irristatu eta deklaratzeko, adibidez, nola hilketako heriotzak erakusten digun zorrien eta **arkakusoen** pare garela, edo haien gisako biktimak garela. Iñaki Segurola

Arkakusoren bat edo zomorrotxoren bat ikusi ahala, atzaparrekin atzeman eta ahora. Gotzon Garate

Ez duzu **arkakusorik** ez zimitzik aurkituko gure oheetan. Anjel Lertxundi

Etxera heltzen zarenean, begira ezazu ea **arkakusorik** -edo itsatsi zaizun. Oskar Arana

Maiseatzaileei **arkakuso** ziztatzaileei bezala egiten zien ihes. Askoren artean

Egik oilarrarena, nahi baduk, **arkakuso** harroa. Agustin Otsoa

Arkakuso aluak. Harkaitz Cano

Gero, tabernako mahai baten atzean etzaten dira hanka-zabalik, eta mahukak jasotzen dituzte **arkakuso**-markak dauzkaten beso zuriak erakutsiz; mahai gainean ukabilka hasten dira eta oihuka, ahotsa hesteetatik aterako balitzaie bezala. Koldo Biguri

Hargatik sar liteke **arkakuso**- edo zorri-hiltzea gizagauza arautu, jakin, arrazoitu edo zertarakodunen zakuan. Iñaki Segurola

2 *arkakuso arrunt* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

XIX. mendeko azken hamarkadan izurri zuneta beltza **arkakuso arruntek** hedatzen zutela jakin eta bere aurkako borroka benetan eraginkorra antolatu zen arte makina bat lotsagabe mutur-luze aberastu zen maki sasi belar-erremedio salduaz. ETC-prentsa

3 *arkakuso merkatu* kukuso merkatua.

Arkakuso Merkatura egiten zituen joan-etorrietatik, aldiro itzultzen zen gauza bakan eta baliotsuren batekin. Jon Muñoz

Arkakuso Merkatuan sarri ibiliz eta traste-saleroslearen berezko senaz tankeratua zuen Maxek bere gustua. Jon Muñoz

4 *arkakuso-plantain* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ardi-belar edo **arkakuso-plantain** ("Plantago psyllium") plantaginazeoen familiako urtebeteko edo gehiagoko bizitza duen belar landarea da. ETC-entziklopedia

5 *arkakusoak akabatu*

Bordelen, ene leihoak horma handi batera ematen zuen; Baionan, zuhaitzak zeuzkan karrika batera; Donostian, **arkakusoak akabatzen** zituen atso batengana. Koldo Izagirre

6 *ur arkakuso* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Baina ez balitz bere ikuseremuaren barruan izaten ziren taupada eta jauzi etengabeengatik, **ur arkakuso** zenbatezinen modura, hartaz esan zitekeen hilabeteetan ez zuela ezertxo ere edan. ETC-literatura, saiakera

Noraezean dabiltzan plankton-zelula berde hauts modukoak, **ur-arkakuso** ñimiñoak eta uretatik planktona iragazten duten eta, era berean, beste arrainek edo hegazti, bisoi, mapatxe eta abarrek jaten dituzten arrainak, besteak beste. ETC-literatura, saiakera

Urte hartan bertan, AEBetako Kimika Elkartearen bilera batean aurkeztutako txosten batek erakutsi zuenez, uretan disolbatutako karbono nanoesferek ingurumen kutsadura komunaren itxura dute arrainen garunari kalte egin eta **ur arkakusoak** hiltzen dituzte. ETC-prentsa

Tranpa horiek operkulo izeneko irekidura bat dute eta **ur arkakusoren** bat edo beste uretako organismo txikiren bat bertara hurbiltzen denean, iletxo batzuk kitzikatuko ditu, horrek operkuloa ireki eta aurrean duen guztia xurgatuko duelarik. ETC-prentsa

Ur-arkakusoren bat irekidura ingurura hurbilduz gero, iletxo batzuk kitzikatuko ditu. ETC-entziklopedia

Uhandre marmolaireen larbek intsektuen larbak jaten dituzte batik bat, bereziki **ur-arkakusoak**. ETC-entziklopedia

Harrapaketa mekanismo hori landare karniboroetan garatu den sistemarik konplexuena da, eta berari esker uretan ugari diren **ur arkakusoak**, eltxoen larbak, protozooak... ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arkakuso asko (3); **arkakuso merkatua** (3); **arkakuso merkatuko** (8); **arkakuso merkatura** (5); **clignancourteko arkakuso merkatuan** (3)

---

arkakusotxo *iz adkor* arkakusoa.

Jaio bezain laster zera galdetu zuen **arkakusotxoak**: zenbat denbora biziko naiz, guraso maiteak? entziklopedia batean begiratu behar izan nuen bi aste inguru direla, baina hortxe dago bizitzeko desioa. Berria - Kultura

---

arkaldu, arkaldu, arkaltzen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* da *ad* ardiaz edo ahuntzaz mintzatuz, arreske jarri.

Behauzen: urtarrilean **arkaldu** den arditik, maiatzean sortu den axuria, kuku-axuria; haren ama: kukama. ETC-literatura, saiakera

---

arkamurka *iz* artelatza.

Arkamurkaren -orain artelatza deitzen diote- azaletik 20 gramo. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egoskortu zen orduan Voynich jauna, eta esan zuen diru gutxiagoan ez ziola inori salduko; ez zen diru beharrean egongo, edo **arkamurka** baino egoskorragoa zen berez. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

arkanbele *iz* tamaina handiko intsektua; arraren baraila handi eta abartuek, oreinaren adajea gogorarazten dute *(Lucanus cervus).*

'Arkanbeleak dira', esan zuen Pinotxok. 'Adajea oreinek bezala erabiltzen dute emea lortu nahian beste arren aurka'. Joseba Sarrionandia

Ez zuen zentzu orokor handirik antzematen, gauzak nahiko absurdoak ziren berez, **arkanbeleak** esate baterako, eta kakalardo adardun haietako bat hartu zuen eskuan eta erabat zentzurik gabekoa iruditu zitzaion. Joseba Sarrionandia

---

arkanjelu *iz* goiaingerua.

Zer eginen duzu zure aingeru, **arkanjelu** eta sainduez? Herria

Gomendatzen zitzaien ezen ibil zitezela kontuz eta egin ziezaiotela otoitz san Migel **arkanjeluari**, zeren san Migelek bertze herensuge bat hil baitzuen jadaneko, han hegoaldean, Aralarko mendietan. Joan Mari Irigoien

Juduen artean jaiera handia izan zuen hebrearren zaindari kontsideratua zen Mikael **arkanjelu** eta goiaingerua. Pello Zabala

Hor ikusten daiteke, kondairaren arabera, San Mikael **arkanjeluak** puskatu zituen kateak, eta herensugearen leize ahoa. Herria

Hor diat nahi nuen argazkia eta, bisian bis, Jondoni Mikael **Arkanjeluaren** eliza erromaniko handia. Piarres Aintziart

---

arkano *izond/iz* ezkutua dena; ezkutua den gauza.

Oro ziren blasfemoak; ez zuten soilik kristauen Jainkoaz gaitzesaten, baizik eta beren panteoiko dibinitate **arkanoez** ere. Juan Garzia

Gainerakoan kontuan hartzekoa da tradizio bikoitza dagoela teologo kristauen artean: bata **arkano** (gr.: "apórrheton") eta mistikoa da, eta bestea irekia eta ezagunagoa. Joan Mari Lekuona

Poeren Gutun lapurtua ipuinean ere denen begien bistan zegoen gutuna, baina inor ez zen hura ikusteko gai, agerikoak ez baitu, nonbait, **arkanoaren** xarmarik. Anjel Lertxundi

Arkanoak irekiarekin du lotura. Joan Mari Lekuona

Antzinako musika hauek entzutean bere **arkanoak** liluratu egiten gaitu eta bidaiaren ideia indarrez datorkigu burura. Berria - Kultura

Gauak ez baitzuen errebelatu, edo ez zuten jakin bere **arkanoetan** irakurtzen, orduan oraindik engainaturik baitzeuden, kristauak, hazi gaiztoko Ibn Arrinque hura eta bere galiziarrak, oso ipar aldera zeudelako. Jon Alonso

Eta fortunaren arroda **arkanoen arkanoa** da gure kasuan. Joan Mari Irigoien

Gida gaitzazu hizketaldi mistikoen gailur txit garai, superfrogagarri eta superargitsuraino, zeinean Teologiako misterio bakun eta absolutu eta aldaezinak ilunpe ilun-ilunetan argitasun gorenez distiratzen duten **arkanoen** isiltasun hasiera-emailean ilunpe hiperrargitsuan bildurik aurkitzen baitira eta zeinak bere haztaezintasun eta ikusezintasun erabatekoan edertasun paregabeko erlantzez blai egiten baitituzte begi lurtarrez gabeturiko gogamenak. Joan Mari Lekuona

Une jakin batzuetan bere kartak abildade handiz erabiltzen jakiteak emandako itzalari, hala nola Eliot aferarenean: korrelatibo objektiboarena bota zuenean, denak geratu ziren isil-isilik, miraz, literatur **arkanoen** jabe denaren aurrean nola. Iñaki Iñurrieta

---

arkara *adlag* ardiaz edo ahuntzaz mintzatuz, arreske.

Abereak edatera zihoazen asketan ezarri zituen ziri zurituak ardien aurrean; hala, edatera joatean, ardiek **arkara** izaten zuten. Elizen arteko biblia

Arkara edo ez, aharia urrun dagoela ere, esponjak asko erremediatzen du orain. Pello Zabala

---

arkasats *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* zurtoin igokari eta arantzatsuak dituen zuhaixka *(Smilax aspera).*

Endalar edo **arkasats** ("Smilax aspera") zurtoin igokari eta arantzatsuak dituen zuhaixka da, bihotz itxurako hostoak eta mulkotan bilduriko ale gorri edo beltzak ematen dituena. ETC-entziklopedia

Laiotzean ageri den liana-eiteko geruzak -**arkasats** laharrez taxuturikoak- berresten du, hain zuzen ere, horko basoaren bizialdia urtetsua dela eta bilakaera aurreratua ageri duela. ETC-prentsa

---

arkatz *(ETCn **2.440** agerraldi; cf **lapitz**[1] ETCn **885** agerraldi)* **1** *iz* barnean grafitozko hagaxka mehe bat duen zurezko zotz modukoa, idazteko edo marrazteko erabiltzen dena. ik **lapitz**[1].

Berehala ekarriko diat papera eta **arkatza**. Rafa Egiguren

Lau hormatan eskegi ditu Gorritik 26 kutxatxoak, eta erdian zurginaren **arkatza** sabaian zintzilikatu du. Berria - Kultura

Arkatza, borragoma eta koloretako pinturak. Berria - Harian

Arkatza, erregela, eta konpasa hartu, eta marrazki bat egin zuen, di-da, Ruche jaunak. Jon Muñoz

Neuk ere honezkero horretan jardun beharko nuke, begiak testuan iltzaturik eta **arkatza** eskuan, interesatzen zaizkidan pasarteak azpimarratzen edo ulertzen ez ditudan hitzak eta metaforak koadernoan apuntatzen. Anjel Lertxundi

Agenteak koaderno bat atera eta **arkatz** baten punta mihiaz busti zuen. Lopez de Arana

Agure moretua orri baten gainean makurturik dago, **arkatz** baten punta miazkatzen. Monika Etxebarria

Hamar minutu badituk **arkatza** eskatu diadala... **Arkatzik** ez duk? Josu Zabaleta

Teknika hanitx erabilten ditu bere lanetan: hur tinta, tinta beltza, akrilikoa edo **arkatzak**. Herria

Konketan pilatuta zeuden gauza batzuen aztarna bustiak: diruzorro bat, koaderno bat, **arkatzak**, labana bat, bi pelikula-erroilu, petaka txiki bat. Lopez de Arana

Orri bat erdibitu, eta zatietako bat eskaini zidan **arkatzarekin** batera. Ramon Saizarbitoria

Arotzak **arkatzaz** marka bat egin -honaino iritsi behar du auskalo zerk-, **arkatza** belarrian jarri eta eskailerako esku-karrila arras-arras lixatzen segitzen du. Harkaitz Cano

-Pasarte zehatza aipatzeko mesedea eginen zenidake? -dio, **arkatzaren** punta milikatuz. Monika Etxebarria

Ireki zuenean, ordea, beste azpimarra berri asko aurkitu zituen, **arkatzez** eginak batzuk, boligrafoz besteak; kolore desberdinetan: gorri, urdin, beltz... Esku desberdinak sumatzen ziren han ere. Iñaki Iñurrieta

Goio harrituta geratu zen neskaren bekainen arku perfektu **arkatzez** marraztuari begira, mamuari beldurra jada galdu dionaren arretarekin. Joseba Sarrionandia

Hurbileko postu batera eraman zuten, eta buru egiten zuenari honako lerro hau utzi zioten paper mutur batean **arkatzez** idatzita: "Eskuak odoletan zituen atxilotzean. Karlos Zabala

Ur margoak, litografiak eta **arkatzezko** marrazkiak egin zituen. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Holandarrak, **arkatz** finez marraztutako erretratuari begira, Dionisoren emaztea polita izan zela jakin zuen. Baten buruak **arkatz** gorri baten marra zuen inguruan. Istantean, **arkatz** gorriz, muga berria marrazten hasi zen kartografoa. Felipe Juaristi

Punta atera diozu **arkatz** beltzari, begi ertzak birpasatzeko. Sonia Gonzalez

Arkatz markatzailez egindako marra batez inguratuta zeuden Max eta Nofutur. Jon Muñoz

Bila zebilena aurkitu du, besteetatik bereizten eta arretaz irakurtzen dituen lau orri, erreferentziarik garrantzizkoenen gainean **arkatz** markatzaile fluoreszente horia pasatuaz. Jon Alonso

Azal beltzeko kaiertxo bat eta **arkatz** punta zorrotz-zorrotz bat atera zituen. Mirentxu Larrañaga

Ingurunearen prestakuntza; eskura nahiko zituen gauzak biltzea: kleenexak, azpimarratzeko **arkatz** bat, te-ontzia. Ramon Saizarbitoria

Bere zorro zilarreztatutik agenda bat atera zuen, gainetik irakurri eta oharrak hartu zituen **arkatz** zilarreztatu batez. Lopez de Arana

Zedrozko **arkatz** berrien usaina. Irene Aldasoro

Behartu egin nahi ninduen bere tintazko **arkatz** krakatsua eskuan hartzera, bere liburu likatsuari heltzera eta nire izena jartzera zoko koipetsu batean. Anton Garikano

3 (hitz elkartuetan)

Gure poltsan, liburuak, koadernoak eta **arkatz**-kutxatila bat zeuden. Juan Kruz Igerabide

Arkatz puntarekin zakila altxatu eta barrabiletan edo bazterretan zorririk ez ote zen begira jarri zen, erne ernea, kopeta ilun. Eneko Bidegain

Dena sabelera itzuli genion, eta **arkatz** muturrak eta mahai gainera eroritako pasta zatiak gehitu genizkion. Juan Kruz Igerabide

Aurretik orrian **arkatz** lerroz betetako triangelu bat gizon haren bizarrarekin uztartzeak zer pentsatua eman zion. Joxemari Urteaga

Ez zen pintorea, ez zen artista, baina maiteminduta zegoen eta bere ametsetako printzesaren erretratua **arkatz**-hautsez egindako lerro artean irudikatzen zuen. Jasone Osoro

Haren abar-zango txikiek eta oin zabal orpo irtenekoek, haurrek margo-**arkatzez** zirriborraturiko marrazkiak ziruditen. Mirentxu Larrañaga

4 ***arkatz elektriko*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arkatz elektriko argitsua. ETC-literatura, saiakera

5 ***arkatz eta paperezko joko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Paper eta arkatzezko jokoak, edo **arkatz eta paperezko jokoak**, jokatzeko idazteko tresna bat eta idazteko gainazal bat nahikoa dituzten jokoak dira. Honen adibide lirateke hiruko artzain jokoa, karratutxoak, itsas gudua, urkatua... ETC-entziklopedia

6 ***arkatz gainmarratzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arkatz gainmarratzailea tinta fluoreszente duen errotuladore mota bat da, emandako testu baten zati garrantzitsuenak seinalatzeko erabiltzen dena. ETC-entziklopedia

7 ***arkatz markatzaile***

Arkatz markatzailez egindako marra batez inguratuta zeuden Max eta Nofutur. Jon Muñoz

Bila zebilena aurkitu du, besteetatik bereizten eta arretaz irakurtzen dituen lau orri, erreferentziarik garrantzizkoenen gainean **arkatz markatzaile** fluoreszente horia pasatuaz. Jon Alonso

Erasotzaileek ("magrebiarrak edo beltzak"), dio emakumeak, artaziez ilea moztu, cutterrez elastikoa eta prakak ez ezik azala ere urratu, eta **arkatz markatzaile** beltzez hiru esbastika marraztu dizkiote sabelean, hamahiru hilabeteko haurraren aurrean. Iñigo Aranbarri

8 ***arkatz optiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Horrez gainera, datuak sartzeko erabiltzen den **arkatz optiko** edo erakusleari ere kurtsore deritzo, eta sagua darabilten aplikazio edo sistema eragileetan, baita sagua mugitzearekin batera pantailan lekuz aldatzen den gezi edo bestelako ikurrari ere. ETC-entziklopedia

Baina oraingoz ez du **arkatz optikoa** erabiltzeko asmorik. ETC-prentsa

Photoshop programako **arkatz optikoaren** laguntzaz guztia marrazten du gero. ETC-prentsa

Bestela, sistema ordenagailuz ere goberna daiteke teklatu, sagu, kontrol-bola, **arkatz optiko** edo taula digital bidez, edo monitorearen irudi gaineko ukipen-pantaila bat ukituz. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 ***begietako arkatz*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Ezpain-margoak, **begietako arkatzak** -berdeak, beltzak, okreak-, makillajeko baseak, kremak, betile faltsuak, ile-txerlo faltsuak. ETC-literatura, saiakera

Lotsa emango lidake apaindu naizela ikusteak, eta poltsan gorde ditut rimmela eta **begietako arkatza**. ETC-literatura, saiakera

Begi-arkatz edo **begietako arkatza** begiak nabarmentzeko begien ingurua eta betazalak koloreztatzen dituen arkatza da, bereziki emakumeek erabiltzen dutena. ETC-entziklopedia

10 ***koloretako arkatz***

Lantegian, kutxa irekien erdian, hantxe agertu zen Max bere traste guztiekin: Canson papera; ezabagoma, irasagarra bezain lodia; erregela laua; **koloretako arkatzak** -gorroto zituen errotuladoreak. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arkatz batekin** (3); **arkatz baten** (7); **bi arkatz** (3)
> **arkatza atera** (4); **arkatza eskuan** (4); **arkatza eta papera** (3); **arkatza hartu** (3); **koadernoa eta arkatza** (3); **papera eta arkatza** (4); **zurginaren arkatza** (3)
> **arkatzez egindako** (3); **arkatzez idatzi** (3)

---

arkatzontzi *iz* arkatzak gordetzen diren ontzia.

Bazen, halaber, maskor batez eginiko hautsontzi bat, zigarrokinez eta gerezi-hezurrez betea, eta alabastrozko **arkatzontzi** bat Vesuvioaren formakoa. Juan Garzia

---

arkazi *(orobat **arkazia**) iz* akazia.

Zedro, **arkazi**, mirto eta olibondoak landatuko ditut basamortuan; zipres, zumar eta izeiak eremuan. Elizen arteko biblia

Maiatzeko egun bat zen, **arkaziak** loretan baitzeuden. Joan Mari Irigoien

Bide ondoko **arkaziaren** hostoen itzalek iluntzen duten masailaren ondoan irribarre batek luzatzen dio ezpain ertza. Pello Lizarralde

Minutu pare bat eman behar izan du sastrakan, haltz, lizar eta **arkazia** artean, ur bazterrera iritsi arte. Pello Lizarralde

Muinoaren malda ondo berdinduriko belarrez jantzirik zegoen, eta Ingalaterrakoen erako bizpahiru lore-sail zituen, lilekin eta **arkazia** horiekin. Jose Morales

Hagak **arkazi** -zurez egingo dituzu eta urrez estaliko. Elizen arteko biblia

Arkazi -zurezko kutxa egin, lehengoak bezalako bi harlosa ebaki eta, harlosak eskuetan nituela, mendira igo nintzen. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arkazi zura (3); **arkazi zurez egin** (3); **arkazi zurezko bost** (3); **arkazi zurezko hagak** (4); **arkazi zurezko kutxa** (3); **egin arkazi zurezko** (8); **hagak arkazi zurez** (3)

---

arkazia ik **arkazi**.

---

arkazte *iz* ardi gaztea, bi urte inguru duena.

Zatarrak hil izanen du Benaiko **arkazte** lepabeltxa, bi begiak jan dizkio beleak, baina, han ez da putrerik ageri. Patziku Perurena

---

arkear *(corpusean ez dago; ETCn **104** agerraldi) izlag/iz* duela 3.800 milioi urte ingurutik duela 2.500 milioi urte inguru arteko garaia edo eona.

Arkear eona -aurretik "Arkeozoiko" izenaz ezaguna- denbora eskala geologikoaren banaketa bat da, Kanbriarraurrearen bigarren banaketa geologikoa. ETC-entziklopedia

200 milioi urteko iraupena izan zuen eta **Arkear** eoiaren lehen garaia izan zen. ETC-entziklopedia

Aroen zatiketa oso desberdina da. Eon batzuetan, adibidez **Arkearrean**, aro bakoitzak 300-400 milioi urte irauten du; Fanerozoikoan, aldiz, 290-65 milioi urte artean irauten dute aroek. ETC-entziklopedia

Arkearraren amaieran hasi eta duela 542 milioi urte arte irauten du, hau da, Fanerozoikoaren hasieraraino. ETC-entziklopedia

Arkearraren hasieran, Lurreko lurrazala Hadearrean baino hotzago zegoen eta proto-kontinente batzuek osa zitezkeen. ETC-entziklopedia

Beste liburu batzuetan Kanbriarraurrea bi eonetan banatua dago: **Arkearra**, zaharra, eta Proterozoikoa, berriagoa. ETC-literatura, saiakera

Alde batetik, eremu proterozoikoek (600-2.600 Mu) 40 eta 55 km bitarteko lurrazala eta oinaldean abiadura altuko geruza bat (7 km/s) dute, eta bestetik, eremu **arkearrek** (2.600-3.800 Mu) 27-40 km bitarteko lurrazala dute baina ez dute oinaldeko abiadura handiko geruzarik erakusten. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hiru argazkietan, Mendebaldeko Groenlandiako pikor larriko leukogabro **arkear** baten deformazioaren hiru urrats erakusten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arkegonio *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* zenbait landareren ernaltze organo emea.

Enbriofitek, gainera ugal aparatu zelulanitzak dituzte, hala esporofitoan (esporangioak) nola gametofitoan (anteridioak eta **arkegonioak**). ETC-entziklopedia

Gimnospermoak hainbat **arkegonio** sortzen dituzte. ETC-entziklopedia

Obuluak 2,5-3,5 x 1,6-2,2 cm dituzte eta bi edo hiru **arkegonio** daramatzate. ETC-entziklopedia

Geruza antzuaz babestuta daudenean, ordea, gametangio (anteridio arra eta **arkegonio** emea) deritze, eta horiek enbriofitoek garatzen dituzte. ETC-entziklopedia

---

arkenteron *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* enbrioian dagoen barrunbea, gerora digestio aparatua bihurtuko dena.

Inbaginaturiko zelula horien multzoari, une horretatik aurrera, endodermo esaten zaio, eta horrela osotutako zakuari **arkenteron**. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arkeobakterio *(corpusean ez dago; ETCn **84** agerraldi) iz* nukleorik gabeko eta zelula bakarreko organismoa.

90 gradu zentigraduko tenperatura hotzegi zaion **arkeobakterio** bat da Pyrolobus fumarii. ETC-prentsa

Woesek **arkeobakterio** deitu zien, eta, geroago, laburtuz, arkeo. ETC-zientzia, zuzenbidea

Clostridium, Methanococcus (**arkeobakterioa**) ETC-zientzia, zuzenbidea

Bertan bizi diren **arkeobakterioek** eta bakterioek kimiosintesia egiten dute, askotan konposatu inorganikoak oxidatuz, eta kate-trofikoaren oinarri dira. ETC-entziklopedia

Arkeobakterio hauek betebehar oso garrantzitsua burutzen dute hainbat ekosistemetan: hausnarkarien digestio-aparatuan, zingiretan eta hondakin-uren araztegietan, esaterako. ETC-entziklopedia

Mikroskopio optikoan aztertuta **arkeobakterioek** antz handia dute bakterioekin, ezin dira bereizi. ETC-entziklopedia

Gaur egun ezagutzen den bizidun azidofiloena Picrophilus oshimae **arkeobakterioa** da, 0,7ko pH-an eroso bizi dena. ETC-entziklopedia

Mikrobiologo askoren ustez, orain dela 3.000 milioi urte gaur egungo **arkeobakterio** eta eubakterioen arbaso komuna bizi izan zen, termofilo anaerobio bat, Lurreko garai hartako bizi baldintza gogorretan moldatua. ETC-entziklopedia

Bakteriorrodopsina Halobacterium generoko **arkeobakterioek** (eta beste Halobacteria batzuek) duten purpura koloreko pigmentua da, egitura proteikoa duena. ETC-entziklopedia

Hartziduren ostean, sortutako CO_2 eta H_2 gasak **arkeobakterio** batzuek erabiltzen dituzte metano gasa sortzeko (CH_4), arnasketa anaerobio eginez: ETC-entziklopedia

Arkeobakterio eta bakterioek ez bezala, eukariotoak elkartu eta izaki zelulaniztunak sor ditzakete, ehun eta zelula mota ezberdinekin. ETC-entziklopedia

---

arkeologi ik **arkeologia**.

---

arkeologia *(orobat **arkeolojia** g.er., eta **arkeologi** g.er.)* **1** *iz* antzinako zibilizazioen azterketa, haien monumentuen, arte lanen eta kidekoen ikerketaren bidez gauzatzen dena.

Garai baten, **arkeologia** monumentu mutuen, arrasto bizigabeen, testuingururik gabeko gaien eta iraganak utzitako gauzez arduratzen zen diziplina zenean historiarantz jotzen zuen eta bere lana diskurtso historikora itzuliz hartzen zuen bere zentzua. Xabier Arregi

Arkeologia, antropologia, hizkuntzalaritza izan dira euskal kulturaren zientzia fundazionalak. Joseba Zulaika

Beste hitz batzuetan, **arkeologiak**, gaur egun arte diskurtso zientifikoen esparrura mugatuta, gainditu ezin duen behar bati obeditu al dio, ala zirriborratu al ditu berak, adibide partikular baten gainean, guztiz beste hedapen bat izan dezaketen azterketa erak? Xabier Arregi

Esaldi-atribuzio eta aditz-kopula teoria zaharra berrartzean, Port-Royaleko gramatikariek enuntziazio-erregulartasun bat ireki dute, **arkeologiak** bere espezifikotasuna deskribatu behar duelarik. Xabier Arregi

Guzti hori **arkeologia** da, laster ez da izango hemen Espainiako banderarik, ez guardia zibilik, ez oligarkarik. Joseba Sarrionandia

Antropologia kulturala moderno bilakatu da, Europako zibilizatuen zientzia gisa, basakerian geraturiko edo "historia gabeko" herriei buruz; goitik behera begira, **arkeologia**

kultural baten antzera. Askoren artean

XVIII. mendeko kritizismoak eta **arkeologia** ilustratu berriaren pizkundeak (antzinako arkitektura-aztarnen ikerketa exhaustiboko kanpainak, Paestum-eko tenpluen aurkikuntza, arkitektura greziarra zuzenean ezagutzea...) lagundu egin zuten, azkenean, bestelako giro intelektuala sortzen. **Arkeologia** -indusketa bat duk. Santiago Iruretagoiena

Ez zuela berez Arkeologiarik ikasi, Filologia baizik; baina **Arkeologi** Institutu batean ari dela lanean orain, dirua irabazi behar baitu, Piper jaunarengandik banandu ondoren. Joxe Austin Arrieta

Zibilizazioen historietan hain atal goiztiarra aurkitzeko ikerketan Mendebalde modernoko **arkeologi** aurkikuntzak metaturiko jakintzak oraindik itsumustuka uzten du hogeigarren mendeko historialaria ilunabar historikoan; **Arkeologi** aurkikuntzaren aurrerapenak aukera emango baligu Indus kultura Zibilizazio Sumerikotik aparteko gizartetzat hartzeko, eta Shang kultura Zibilizazio Sinikoaren aurrekotzat, zenbaketan egindako aldaketa honek gure bilduma hogeita hirura igoaraziko luke. Iñaki Mendiguren

2 irud/hed

Ni ez nau ezkontzara inork gonbidatuko, eta futuroaren **arkeologia** barregarri hau egiten jarraituko dut. Joseba Sarrionandia

3 *(Michel Foucault-ek erabiltzen duen adieran)*

Hitzen eskubideak -bat ez datorrena filologoenarekin-, beraz, baimentzen du ikerketa hauei guztiei **arkeologia** izena ematea. Xabier Arregi

Arkeologiak diskurtsoak deskribatzen ditu artxiboaren ingurunean ematen diren jardute bereziak bezala. Xabier Arregi

Beste hitz batzuetan, **arkeologiak** , gaur egun arte diskurtso zientifikoen esparrura mugatuta, gainditu ezin duen behar bati obeditu al dio, ala zirriborratu al ditu berak, adibide partikular baten gainean, guztiz beste hedapen bat izan dezaketen azterketa erak? Xabier Arregi

Esaldi-atribuzio eta aditz-kopula teoria zaharra berrartzean, Port-Royaleko gramatikariek enuntziazio-erregulartasun bat ireki dute, **arkeologiak** bere espezifikotasuna deskribatu behar duelarik. Xabier Arregi

Esan ahal izango da, hitzekin pittin bat jokoa eginaz, gaurko historiak **arkeologiarantz** jotzen duela, monumentuaren barruko deskribapenera. Xabier Arregi

4 ***arkeologia aztarnategi*** *(corpusean ez dago; ETCn **157** agerraldi)*

Arkeologia aztarnategia lehenaldiko jardueren frogak (historiaurrekoak zein historiakoak) gordetzen dituen tokia edo tokien multzoa da, arkeologiaren bitartez ikertua edo ikertzekoa. ETC-entziklopedia

Atapuerca **arkeologia aztarnategia** garrantzitsua da pertsonen bilakaera ezagutzeko. ETC-prentsa

Hurrengo 16etan **arkeologia aztarnategiaren** azalpena ematen da, azalekoa soilik, Praileaitzen garrantzia azpimarratzeko nahikoa. ETC-prentsa

Hirurak daude babes bereziko gune izendatuta, **arkeologia-aztarnategiekin** batera. ETC-prentsa

XVI. mendean, balea arrantzaren portu oso garrantzitsua izan zen Labrador, eta, gaur egun, izugarrizko **arkeologia aztarnategia** dute. ETC-prentsa

Baina ofizio ez duena, afizio gisa hartu du, eta **arkeologia aztarnategi** garrantzitsuak aurkitu ditu. ETC-prentsa

Arrolako Oppiduma eta Arrolako **arkeologia aztarnategia** ezagutzeko bisita gidatuko du Juan Jose Cepedak igandean. ETC-prentsa

Jendeak uste baino **arkeologia aztarnategi** gehiago daude. ETC-prentsa

Datu espezializatuagoen artean, berriz, profil sismikoak, **arkeologia aztarnategi** bateko aztarnen banaketa edo migrazioei buruzko estatistikak aipa daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***arkeologia esperimental*** *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Arkeologia esperimentala (esperientzia-arkeologia ere esaten zaio) azterketa-eremu bat da, eta hipotesi arkeologikoak sortzen eta probatzen saiatzen da, gehienetan antzinako kulturen bideragarritasuna erreplikatuz edo hurbilduz, hainbat lan edo lorpen eginez. ETC-entziklopedia

Haiekin batera Roma Anticua Ingalaterrako taldea izan da; **arkeologia esperimentalean** trebatu, eta aspaldidik halako errepresentazioak egin izan ditu. ETC-prentsa

Hirugarren urtez antolatu dute Bizkaiko burdinaren itsasbidea, antolatzaileen hitzetan "**arkeologia esperimentala** ". ETC-prentsa

Arkeologia esperimentalaren barruan sartzen diren tailer horietan, arkeologia beste era praktikoago batean irakastea lortzen dute: " **Arkeologia esperimentala** topatu izan diren aurkikuntzak hobeto ulertzeko baliogarria da, batez ere, Paleolito garaiko aztarnak horren urriak izanda". ETC-prentsa

Akizuren ustez, egiten duten sagardoa " **arkeologia esperimental** " modukoa da, XVI. mendean egiten ziren edarietatik gertuago daudelako. ETC-prentsa

Aipatutakoez gain, patrimonioaren gestioari buruzko mahaingurua eta **arkeologia esperimentalaren** inguruko jardunaldi batzuk antolatu dituzte. ETC-prentsa

Goiz guztian, Suhar arkeologia taldeak **arkeologia esperimentala** gertutik ikusteko eta ikasteko aukera eskainiko du, eta tailer baten bidez, historiaurreko bizimodua nolakoa zen azalduko dute. ETC-prentsa

6 ***industria arkeologia*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Industria-arkeologia , Arkeologiaren adar berrienetako bat da, industriaren prozesuetan eta ekoizpenean erabiltzen diren metodo eta makinariaren nahiz kokalekuen ikerketan datza, bereziki Iraultza Industrialaren ondoren. ETC-entziklopedia

Industria arkeologiaren ikuspuntutik, haren irudia gorde behar da zelanbait. ETC-prentsa

Hain zuzen ere, nahikoa da azoka batean sartzea, teleskopioz begiratzea gaueko zeruari, mikroskopioz ikustea harea zahar bat, murgil egitea itsasoan, opari-denda batean sartzea, gurpilezko trafikoari nahiz **industria-arkeologiari** kontu egitea... ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arkeologia ahalegintzen** (3); **arkeologia museoa** (5); **arkeologia museoaren** (5); **arkeologia museoko zuzendaria** (3); **urpeko arkeologia** (3)
> **arkeologiak bere** (3); **arkeologiak ez du** (6)

---

arkeologiko **1** *izond* arkeologiarena, arkeologiari dagokiona.

Vitruvioren pasarteak irudiz janzteko zegoen askatasun hori nahitaez murriztuta geratu zen, batez ere XVIII. mendetik aurrera, espiritu filologiko eta **arkeologiko** gero eta aurreratuago bati esker datu gero eta zehatzagoak ematen hasi zirenean, tratatu erromatar horren inguruan egin nahi ziren interpretazio-lizentziak nekezago defendatzeko moduan utziz. Santiago Iruretagoiena

Freudek, esate baterako, gogamena aztarnategi **arkeologikotzat** irudikatzea zuen gogokoen, eta geruzaz geruza antzinako estratu lurperatuz betea (baina, aztarnategi hartan, geruza horietako edozein igo zitekeen kontzientziara noiznahi). Imanol Zurutuza

Euskararen agonia, antzinatearen oihartzun **arkeologikoak** , kristautasunaren krisia, meatzari eta langileen ezkerraldeko zeru hautsez betea, ikasleen erreboltak, gorriz koloreztatutako sinesmen berriak... hori izan zen gure ametsen eta desiren arragoa. Joseba Zulaika

Ekain Fundazio sortu berriak Lili jauregiko (Zestoa) azterketa historikoa eta **arkeologikoa** egiteko proiektua lehiaketara atera du. Berria - Kultura

Andrearriagako hilarriari buruzko datu **arkeologikoak** , berriz, Mertxe Urteagaren Erromatar garaiatik hartu dut. Martin Anso

Jarrera filosofiko hori ikerketa-lan askotara itzuli behar da: horiek beren koherentzia metodologikoa dute aldi berean arrazoizko era teknologiko gisa zein askatasunen joko estrategiko gisa, batera aztertutako praktiken ikasketa **arkeologiko** eta genealogikoan. Askoren artean

Ikerketa horretan orubearen balio **arkeologikoa** zehaztu behar da, eta obretan izan dezakeen eragina. Berria - Kultura

Ondare **arkeologikoa** : Gipuzkoan egin diren indusketa **arkeologikoetan** bildutako materialak dira. Berria - Kultura

2 *(Michel Foucault-ek erabiltzen duen adieran)*

Ez nuke lasai egoteko eskubiderik izango "ideien historiatik" banantzen ez naizen artean, erakusten ez dudan artean zertan bereizten den azterketa **arkeologikoa** "ideien historiaren" deskribapenetatik. Xabier Arregi

Deskribapen **arkeologikorako** (eta kontuan izan gabe hemen prozeduraren ahalezko joan etorriak), kontrajartze honek azterketaren terminus a quo delakoa osatzen du, kontraesan deribatuek terminus ad quem delakoa osatzen duen artean. Xabier Arregi

Azterketa **arkeologikoak** beste helburu bat izango luke: berak bilatuko luke ea espazioa, urruntasuna, sakontasuna, koloreak, argitasuna, proportzioak, bolumena eta profila ez ote ziren garai hartan kontuan hartuak izango, ez ote ziren izendatuko, enuntziatuko, kontzeptualizatuko jardute diskurtsibo batean. Xabier Arregi

Arkeologia hitzak ez du balio aurrerapen gisara; berak hitzezko jardutearen azterketari ekiteko lerro bati izena ematen dio, besterik ez: maila baten zehaztapena da: enuntziatuarena eta artxiboarena; eremu baten mugapena eta argitzapena: jokoan jartzen ditu erregulartasun enuntziatiboak eta positibotasunak; eraketa-arauak, deribazio **arkeologikoa**, a priori historikoa eta era horretako kontzeptuak. Xabier Arregi

3 *artefaktu arkeologiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Herri horretako mendi batean (Erge mendia, Marteau mendia, Marto mendia, Marto auzoa, cap del Martel auzoa edo Cap des Pènes) herri harresitu bat aurkitu zen eta barruan **artefaktu arkeologiko** ugari. ETC-entziklopedia

4 *aztarnategi arkeologiko*

Freudek, esate baterako, gogamena **aztarnategi arkeologikotzat** irudikatzea zuen gogokoen, eta geruzaz geruza antzinako estratu lurperatuz betea (baina, aztarnategi hartan, geruza horietako edozein igo zitekeen kontzientziara noiznahi). Xabier Olarra

Aztarnategi arkeologiko garrantzitsua da Zarauzko parrokiakoa, eta horren inguruko ikerketek aurrera egiten laguntzeko borondatea agertu dute Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaketa euren gain hartuz. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arkeologiko bat** (3); **azterketa arkeologiko** (3)
> **arkeologikoa ez** (3); **azterketa arkeologikoa** (3); **balio arkeologikoa** (3); **deskribapen arkeologikoa** (4); **ondare arkeologikoa** (9)
> **aztarna arkeologikoak** (6); **azterketa arkeologikoak** (6); **deskribapen arkeologikoak** (3); **esparru arkeologikoak** (3)
> **ondare arkeologikoaren** (4)

---

arkeologikoki 1 *adlag* arkeologiaren aldetik.

Ingurua **arkeologikoki** oso aberatsa zela jakina zen, erromatarren galtzada zenbait bertatik igarotzen zirelako, erromatarren garaiko bizitokien erreferentzia egon badagoelako, eta baita Done Jakue bideak ingurua zeharkatzen duelako ere. Berria - Kultura

2 *(Michel Foucault-ek erabiltzen duen adieran)*

Zerikusia du **arkeologikoki** deskribatutako jakitean oinarrituta osatzen diren eta euren arauak hartan oinarrituta osatzen dituzten zientziekin: hauek dira berarentzat objektu-zientziak, dagoenez gero anatomia patologikoa, filologia, ekonomia politikoa, biologia izan ahal izan diren legez. Xabier Arregi

Erakuts daiteke eraketa diskurtsiboan bertan jaiotzen direla, enuntziazio-funtzioa gauzatzeko baldintza beretan; kontraesan hauek **arkeologikoki** deribatuak dira eta egoera terminal bat osatzen dute. Xabier Arregi

Arkeologikoki ezberdinak diren bi osagai. Xabier Arregi

---

arkeologo *iz* arkeologian aditua den pertsona.

Arkeologo bat daramagu eraikuntzaren arrastoak bilatzen lagun diezagun. Anjel Lertxundi

Jean Etchevers, Donibaneko eliza ondoko botikariak egin marrazkiak liburuño batean publikatu zituen eta haren bidez etorri ziren **arkeologo** batzuk dorrearen misterioa zilatu nahiz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pavlos entzute handiko **arkeologoa** da. Josetxo Azkona

Arkeologoen gisa dihardu iragana arakatzen, lurrazpiko aztarna ezkutuak agerian jartzen, mantsotasuna zamari, pazientzia zamaltzain. Imanol Zurutuza

Arkeologoen esanetan, azken Izotz Aroa baino lehenago iritsi zen gizona Amerikara, orain 30.000 urte inguru. Berria - Gaiak

Egia da sumertar eta akadiar literatura klasikoaz Asurbanipalek zituen buztinezko bi liburutegien tamaina ezezaguna zela **arkeologo** modernoentzat. Iñaki Mendiguren

Jacob Spon (1647-1685), historialari eta **arkeologo** frantziarra. Juan Martin Elexpuru

Orain dela bi urte, Ekialdeko Prusian, Ahnenerbeko **arkeologoek** antzinako arioen herrixka baten aztarnak aurkitu zituzten. Alberto Ladron Arana

Aranzadi Zientzia Elkarteko **arkeologoek** miaketak egin dituzte harpe horren sabelean eta Goi Paleolito garaiko aztarna ederrak aurkitu, duela 15.500 urtekoak beraz. Herria

Mintzaldia ez luzatzeko, Ruche jaunak ez zuen aipatu babiloniar taulatxo batean -322 Plimpton taulatxoa deitu zitzaion, aurkitu zuen ingeles **arkeologoaren** izenaren omenez-, eskriba batek zenbaki osoen hamabost bat hirukote idatzi zituela Juancho deitzen da, eta Coruñako udal **arkelogoa** da. Jon Muñoz

Ez nintzateke gehiegi harrituko egunen batean **arkeologoek** 744. urtean datatutako hilarriren bat (edo antzeko zerbait) aurkituko balute ingurumari hauetan. Iban Zaldua

Egia da Argien mendeko beste arkitekto-**arkeologo** handi batek, Giambattista Piranesik, Vitruvioren aldeko azken defentsa porrokatua planteatu zuela. Santiago Iruretagoiena

Christopher Henshilwood **arkeologo** taldeko buruaren arabera, orain arte aurkitutako apaingarririk zaharrenak dira oskolok. Berria - Gaiak

Guillermo Cock buru duen **arkeologo** taldeak 26 momia aurkitu zituen joan zen ostiralean Lima ekialdean (Perun) dagoen Puruchuco eskualdean. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arkeologo talde batek** (4)
> **alemaniako arkeologoek** (3); **arkeologoek aurkitu** (3); **arkeologoek azaldu** (3); **aurkitu dituzte arkeologoek** (5); **dute arkeologoek** (4); **zituzten arkeologoek** (3); **zuten arkeologoek** (4)
> **arkeologoen arabera** (5); **arkeologoen esanetan** (4)

---

arkeologoburu *iz* arkeologo talde baten burua.

Agustin Azkarate **arkeologoburuak** aurreratu duenez, ikusmin handia dute eta hiriaren nahiz katedralaren garapena ezagutzeko berebiziko garrantzia izango dute. Berria - Kultura

Museoak izango duen eraginari buruz, oso baikorra da Eliseo Gil, Veleiako aztarnategiko **arkeologoburua**. Berria - Kultura

---

arkeolojia ik **arkeologia**.

---

arkeometria *(corpusean ez dago; ETCn 56 agerraldi)* *iz* ikerketa arkeologikoetan metodo fisikoak edo kimikoak erabiltzen dituen diziplina.

Batzordeak adierazi duenez, grafitoak oraindik noizkoak diren baieztatu gabe dago eta haien asmoa horretarako baimena lortu eta Europako **arkeometria** laborategi batean adreilu baten datazioa egitea da. ETC-prentsa

Arkeometria laborategi on batek goiz batean erabakiko luke auzia. ETC-prentsa

Arkeometria orain dela 40 urte sortutako zientzia alor bat da. ETC-prentsa

Bere liburua 2008. urtean baino 1960. urtean idatzita dagoela dirudi oraingoan, arestian **arkeometria** zientzia oraindik sortu gabe zegoenean. ETC-prentsa

Koen geologoaren iritzi, **arkeometria** arloko adituak behar ziren batzordean, baina ez dira egon. ETC-prentsa

Pruden, munduan egon badago **arkeometria** izeneko zientzia bat, pieza arkeologikoak datatzea helburu duena. ETC-prentsa

Izan ere, Aldundiko Batzordean hondakin arkeologikoak datatzeaz arduratzen den **arkeometria** arloko aditu bat ere ez zegoen eta geroztik ere ez da egon. ETC-prentsa

Arabako Iruña Argitzeko Batzordearen ustez, ordea, ez Guardia Zibilak eta ez Ertzaintzak dute ostraken azterketa behar bezala egiteko **arkeometria** laborategirik eta tresnarik. ETC-prentsa

Piezen lagin bat **arkeometrian** adituak diren Europako laborategietan aztertzeko eskatu dute beste behin, baita aurkikuntzak egin ziren lekuan indusketa kontrolatuak egiteko ere. ETC-prentsa

Antzinako materialen arkeologoekin batera lan egin du batez ere, eta **arkeometriaren** erabileraren aitzindarietako bat izan zen (materialak aztertzeko teknika modernoak arkeologian aplikatzean datza **arkeometria**). ETC-entziklopedia

---

arkeozoologia *iz* zoologiari dagokion arkeologia.

Bere ikerketa esparruak, labarretako artea eta **arkeozoologia** izan dira. Berria - Euskal Herria

---

arkeria *iz* gizona berez emakumea baino gehiago dela uste duenaren pentsaera eta jarrera. ik**matxismo**.

Zingiran hago, oraindik gai haiz zingira eta hire harrokeria, zingira eta hire **arkeria** bereizteko, baina hemendik gutxira, husten haizenean, dena izango duk putzu, dena izango duk zingira, pentsatu nuen. Harkaitz Cano

Badakit **arkeria** hutsa dela, baina egia da: haserrearen mugan, hain kartsu ikusita, ederragoa iruditzen zitzaidan. Ramon Saizarbitoria

"Bi galai"en, **arkeria** alproja ageri da, eta "Apopilo etxea"n, berriz, seduzitzailea ezkontzarako harrapatzen du neskaren amak. Markos Zapiain

Erokeria zatitzaile orokorrean, alabaina, bada izaki bat ororen gailen: euskal gizona, "homo demens", **arkeriak** jotako mozkor proselitista, taktikaren eta estrategiaren pepepelmoidea, burujabetasunaren alde-edo egundoko burugabekerien egilea, deus arriskatzen ez duen piztia manipulatzaile odolzalea. Markos Zapiain

---

arketipiko *izlag* arketipoarena, arketipoari dagokiona.

Aski distantziaz ageri zitzaion eraikin-ilara begiari proportzioak agertoki **arketipiko** batenak izateko. Iñaki Iñurrieta

Irudi **arketipikoaz** eta abarrez jardunak ginen Gabin eta biok, uhartea lehorreko puntu jakin batzuetatik ikusita nola ageri zen; nola, ibiltaria ibili ahala, uhartea formaz aldatzen zen, eta abar. Iñaki Iñurrieta

Jende xehearentzat deigarri, beldurgarri edo txundigarri gertatu izan da (eta, beharbada, irudi mitiko edo **arketipikoak** sortu izan ditu horrek: aliena, ordezko umea, ume sorgindua). Xabier Olarra

Amets **arketipikoetan** barna galtzea desiratzen nuen ondikotz, salbamen eske. Itxaro Borda

---

arketipo *iz* eredu tipo orijinala, imitatzeko edo kopiatzeko balio duena.

Traidorea, heroia, **arketipoak** dira, benetan sekula izan ez den mundu ideal bati dagozkion kategoriak. Jon Alonso

Ideologizazio-prozesua baino lehenagoko bi pertsonaia horiek gatz gabeak dira, ez dute **arketipo** bihurtzeko ez bokaziorik, ez aukerarik, ez gorputzik. Anjel Lertxundi

Handia da formulen komunikazio-garrantzia haren bertsoetan, eta haietaz baliatzen da topiko edo **arketipotzat** inolaz ere har ezin litezkeen ideiak eta edukiak indartzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Haren pertsonaiak **arketipo** hutsak badira ere bizirik daude oraindik. Koldo Biguri

Horrelako uneak ez dira iritsiko non eta ez ditugun gure begiak zeharka bihurtzen gure barruan daramatzagun irudimenaren **arketipo** handi horietarantz. Oskar Arana

Esango nuke esan, Txomin Agirrek berak ere ez zuela sinesten Joanesen haragizkotasunean, eta **arketipo** ideal gisa sortu zuela, jakinaren gainean, bere ametsen eta nahien arabera -ideologia esaten zaio orain. Xabier Mendiguren Elizegi

Pertsonaiak **arketipo** jakin batzuetan oinarrituta daude; nobleziako kideak dira, ez denak ordea maila bereko nobleak. Jon Muñoz

Koldo Izagirre ere, bere poema bati indar majiko berezia ematerakoan, **arketipo** literario zahar honetaz baliatu zen. Patziku Perurena

Komiki baten orrialdeetatik sortutako **arketipo** adoleszente ideializatu horietakoa dirudi orain, damatxoen mangarako eginiko silueta delikatua. Patxi Iturritegi

Infinitutasun hori bat dator, guztiz modu harrigarrian etorri ere, Halabeharraren zenbaki zigizagatsuekin eta platonikoek gurtzen duten Loteriaren **Arketipo** Zerutiar delakoarekin. Juan Garzia

Casanova, erotismoaren **arketipoa**, Venezian jaio izanak ere badu, jakina, zerikusirik horrekin. Anjel Lertxundi

Herriko jendeak, gizaera konkretuak nabarien diren lekukoak, alegia, giza eskema jenerikoak nahiago ditu, betiko **arketipoak**: artapuskak edo gaizto amorratuak, alderdi onak edo gaiztoak esajeratuz sortutako gizandi horiek, alegia. Patziku Perurena

Hobe duzue, zuen onerako, ikusmena oihal batez estali, maitea bere **arketipo**-eitean, jainkosa-eitean, bizirik atxikitzeko. Oskar Arana

Pertsonaia **arketipoak** sortu bainoago, Laclosek idazketa **arketipoak** sortzen ditu: xalotasun moldakaitzaren idazkera (Cécile, Danceny), maitasun grinarena (Tourvel andrea), libertinoen idazkera maltzur, landuago eta intelektualagoa (Valmont eta Merteuil andrea). Jon Muñoz

Maitemindua nengoen; eta hurrengo egunetan ere, maitemindu-**arketipoaren** portaera-kanonari estu lotzen nintzaiola, halatsu ibili nintzen, Sararen irudia burutik baztertu ezinik. Joan Mari Irigoien

Mirabeau politikoaren **arketipotzat** jartzeak (ez idealtzat) esan nahi du, politiko handiaren epaian ez daukagula balorazio moral arruntekin jokatzerik. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arketipo literario** (3); **beste arketipo** (3)

---

arkibo ik **artxibo**.

---

arkibolta *iz* arku baten aurrealde dekoratua.

Katedraleko kapitel, euskarri, **arkibolta** eta sabaietan dauden irudiak bildu eta aztertuak zituen ordurako. Berria - Kultura

Klaustro gotikoaren Errege Magoen **arkiboltan** dauden hamar aingeru musikarien tresnak berriro egitea erabaki genuen. Berria - Kultura

Eunate zein Olkozko ateetako **arkiboltetan** oraindik ikus daitezke, denboraren poderioz higatuta dauden arren, kondairaren protagonistak: lamia, sugea, jentila, hargina, ilargia. Martin Anso

---

arkin *iz* ardi gorotza. ik **arkorotz**; **altxirri**.

.: Arrazoin geografikoak baditaizke: lepoak xelaiak dira, artaldek ere beren laket lekuak dauzkate, hasteko uda partean, bero delarik freskura puska bat aurkitzen baitute eta han egoiten dira; zapikatzen dute zola hura, hortako da hor belar xehe leuna, **arkinez** ontua. Herria

---

arkipelago ik **artxipelago**.

---

arkitekta ik **arkitekto**.

---

arkitekto *(orobat **arkitektu** g.er., **arkitekta** ipar g.er. eta **arxitekta** ipar g.er.)* **1** *iz* lanbidetzat arkitektura duen pertsona.

Tenpluen konposizioak proportzioa du osagai, eta **arkitektoak** oso kontuz ikasi behar ditu horri buruzko arauak. Santiago Iruretagoiena

Arkitektoak obra publiko bat egiteko enkargua hartzen duenean, gastuen zenbatespena egingo du obra zenbat kostatuko den esanez. Santiago Iruretagoiena

Hirigunetik urrun, mendi magalean kokatua, **arkitektoak** maldaz baliatu ziren eraikinaren sail ezberdinak zenbait mailatan banatzeko. Iban Zaldua

Era berean komeni da **arkitektoak** ubideei buruzkoak eta horien gisako beste gauzei buruzkoak ezagutzea, ezer eraiki aurretik ondo atera ditzan kontuak, egindako lanen inguruan ez dadin gero eztabaidarik sortu etxe-jabeen artean. Santiago Iruretagoiena

Geometria, astrologia, musika eta gainerako zientziak oso ondo ezagutzeko gai izatera iristen denak, horrek gainditu egiten ditu **arkitektoaren** egitekoak eta matematiko izatera iristen da. Santiago Iruretagoiena

Zentzu horretan, Vitruvioren mitoak leku pribilegiatua izango du beti **arkitektoaren** irudi modernoa eratzeko historia luze eta kontraesanez betetakoaren barruan. Santiago Iruretagoiena

Aldeetariko bat hegoaldera bete-betean orientatua egoteko moduan eraiki zuten **arkitektoek** monumentua. Jon Muñoz

Sistema batzuk berariaz erabiltzen dira oso modu konbentzionalean: hori egiten da, esate baterako, **arkitektoek** eta topografoek erabiltzen duten axonometrian; axonometria zentro gabeko sistema bat da, zuzen paralelozkoa. Josu Zabaleta

Hiritarren garaipen hauek ez ziren makinei esker lortu, makinen kontrako arrazoiengatik baizik, **arkitektoen** trebetasunari esker. Santiago Iruretagoiena

Eduardo Torrojaren arkitektura lanen bidez hurbiltzen du **arkitektua** ikuslearengana erakusketak. Berria - Kultura

Ainitz frantses eta italiano **Arkitektuek** eginak dira hemengo etxe asko eta aberaski eginak dira, denbora hortan dirua zen lekuan maite baitzuten erakustea. Herria

Pier Couteaugetariar **arkitekta** mintzatu da gure lehengo laborari etxez bai eta ildo beretik hedatu den etxegintza bereziaz, gauza frango argituz lañoki eta sanoki. Herria

Zernahi adixkide eginak zituen artixten mundu hortan eta azken urte hautan artoski ari zen **arkitekta** baten laguntzen gure Pariseko etxe zahar hunen erreberritzeko gisan. Herria

Mozkin-lorratza **arxitekta** eta Kitxnasai Muthiri huribanisten samalda. Jose Angel Irigaray

Mozkin-lorratza **arxitekta** eta Kitxnasai Muthiri huribanisten samalda. Jose Angel Irigaray

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Europako **arkitektorik** onena izendatu zuen. Legegileak **arkitekto** trebeak bezala jokatzen du, honen lanbidea grabitatearen indar hondatzaileari aurre egin eta eraikuntzaren sendotasuna bermatzea baita. Unai Elorriaga

Piteok, Prieneko Minerbaren tenplua egin zuen **arkitekto** ospetsuak. Santiago Iruretagoiena

Halako batean, baina, kale batetik begiratu eta ez zuen itsasoa ikusi; etxe kurioso bat ikusi zuen, **arkitekto** desorekaturen batena. Unai Elorriaga

Vitruviok, beraz, **arkitekto** ideal bat diseinatzen du honela, eta esaten du jakintza praktiko eta teoriko askotarikoenak konbinatu behar dituela mailarik gorenenean: marrazketa, geometria, aritmetika, optika, filosofia, literatura, historia, musika, medikuntza, zuzenbidea, astrologia. Santiago Iruretagoiena

Arkitekto zuhurrak izan dituzten beste hiri askotan ere portikoak eta pasealekuak aurkitzen ditugu teatroaren inguruan. Santiago Iruretagoiena

Armiarma da **arkitektorik** jeloskorrena, euli batek bere eraikin kostata egindakoa zapaldu orduko, armiarmak euliarengana jotzen baitu, eta hil ondoren jan. Felipe Juaristi

Antzinako **arkitektoek**, naturaren aztarnei jarraituz eta ahotsaren goranzko hedapen-propietateei buruzko ikerketak tarteko, aldapan egin zituzten teatroetako harmailak, eta matematikako arauak eta musikako proportzioak erabiliz, ahalegin guztiak egin zituzten eszenan ahoskatutako hitz oro ikuslearen belarrira ahalik eta modurik garbi eta atseginenean irits zedin. Santiago Iruretagoiena

Patxi Mangado **arkitektu** nafarrak egingo du Valentziako Teulada-Moraira auditoriorako proiektu berria. Berria - Kultura

Biurtekoko sari nagusiak Peter Eisenman **arkitektu** estatubatuarrak eta Belgikako pabiloiak jaso dituzte. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Europako **arkitekto**-elkarterik solbenteenak. Unai Elorriaga

Aurrena dokumentazioan jarri zuen interesa, eta detektibe gisa ibili zen **arkitekto** elkarteko artxiboetan lortu ahal adina proiektu, plano, memoria eta etxearen garaiko aldizkari zahar biltzen. Patxi Iturritegi

Bere liburuan, bere esperientziatik abiatuz, garai hartan **arkitekto**-ofizioa zer zen azaltzen saiatu zen xehetasun guztiarekin. Santiago Iruretagoiena

Garai hartan Trifon Alexandriakoak zuen leku hartako **arkitekto** kargua. Santiago Iruretagoiena

Orduan, adigabeak ez lirateke inolako zigorrik gabe libre ibiliko, eta ezagupenen fintasunik handienarekin prestatutakoak bakarrik ibiliko lirateke **arkitekto**-lanak egiten, inolako zalantzarik gabe. Santiago Iruretagoiena

Deitura aldatu eta Steel6 hartuko banu, **arkitekto**-bulego bat ireki ahal izango genuke hirurok, Wood, Glass eta Steel izenarekin. Oskar Arana

Besoetatik askatu bezain azkar, poliziaburuaren besoetan erori zen, poliziaburuak osasun-batzordeko ikuskatzailearen besoetan utzi zuen, osasun-batzordeko ikuskatzaileak zerga-biltzailearenetan, zerga-biltzaileak udal-**arkitektoarenetan**. Jose Morales

4 ***arkitekto tekniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **163** agerraldi)*

Beste deialdi ireki bat ere egin zuen: **arkitekto tekniko**-aparejadorea izateko lanpostu bat. ETC-prentsa

Ikasketaz eta lanbidez **arkitekto teknikoa** zen eta kultur zaletasun handikoa. ETC-prentsa

Arkitekto teknikoa da lanbidez, eta ama ere bada. ETC-prentsa

Arkitekto tekniko batek prestaturiko txostena erakusten dute gero. ETC-prentsa

Bertan, arkitekto, **arkitekto tekniko**, ingeniari eta ingeniari teknikoek parte hartu ahal izango dute. ETC-prentsa

Oposaketa-lehiaketa bitartez hautatuko dute langilea, eta **arkitekto teknikoaren** titulua izan beharko du eskatzaileak. ETC-prentsa

Udalean hutsik dagoen administrazio bereziko erdi mailako **arkitekto tekniko** lanpostuko deialdia Estatuko Aldizkarian kaleratu zen apirilaren 23an. ETC-prentsa

Segurtasunaren auziarekin lotuta, hain justu ere, **arkitekto tekniko** batek sinatutako txosten bat aurkeztu du Maravillas gaztetxeak, salatzeko gobernuaren argudioa "gezurra" dela. ETC-prentsa

Lonjak etxebizitza bihurtzeko ordenantzan obren gaineko ardura kendu diete **arkitekto teknikoei**: ez datoz bat. ETC-prentsa

"Ondo ez dauden leku batzuk identifikatu ziren eta lehengoratu egin behar direla erabaki", ekarri du gogora Juan Colino **arkitekto teknikoak**. ETC-prentsa

Arkitektoek edo **arkitekto teknikoek** -aparejadoreek- egingo dituzte ikuskaritzak, eta, prezio zehatzik ez dagoen arren, 1.200-1.500 euro inguruan ordaindu beharko da. ETC-prentsa

Liburu hau, hasieran bederen, arkitekto, aparejadore eta **arkitekto teknikoei** zuzendua bazen ere, ingeniaritzako profesional askok eskatzen dute antza, eta horrek, jakina, erabat gogobetetzen nau. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kidego horretan sartzeko, unibertsitate-diplomadun, ingeniari tekniko, **arkitekto tekniko** edo horien baliokide den titulu baten jabe izatea eskatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dena den, arkitektoen zein **arkitekto teknikoen** kontsultarako erreferentea den Neufert liburuan aspektu hauek aipatzen direla azpimarratzekoa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arkitekto teknikoa ikasi ondoren, argazkilaritza irakasle bilakatu zen. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

arkitekto bat (4); **arkitekto batek** (10); **arkitekto baten** (6); **arkitekto batzuek** (3); **arkitekto gisa** (3); **arkitekto guztiak** (3); **arkitekto nafarrak** (3); **arkitekto nagusia** (5); **arkitekto talde batek** (3); **arkitekto taldeak** (3); **beste arkitekto** (7); **zaha hadid arkitekto** (3); **zuen arkitekto** (3)

arkitektoak diseinatu (4); **arkitektoak ez** (3); **du arkitektoak** (3); **euskal arkitektoak** (3); **nahi zuen arkitektoak** (3)

arkitektoaren arabera (3); **arkitektoaren bizitza** (4); **arkitektoaren gurasoak** (4); **arkitektoaren lanak** (3)

arkitektoari bere (3)

arkitektoen elkargoa (4); **arkitektoen elkargoak** (5); **arkitektoen elkargoaren** (3); **euskal herriko arkitektoen** (8); **gipuzkoako arkitektoen** (4); **nafarroako arkitektoen** (3)

zenbait arkitektok (3)

---

arkitektonika *iz* arkitektura sistemen artea.

Arkitektonikaz sistemen antzea ulertzen dut. Ibon Uribarri

Batasun sistematikoa ezagutza arrunta lehen-lehenik zientzia bihurtzen duena, h[au] d[a], ezagutza arrunta bere agregatu soil batetik abiatuta sistema bat bihurtzen duena denez gero, orduan **arkitektonika** oro har gure ezagutzaren alde zientifikoaren irakaspena da, eta beraz, halabeharrez metodoaren irakaspenari dagokio. Ibon Uribarri

Hemen gure autugaia arrazoimen hutsaren diziplina, kanona, **arkitektonika** eta, azkenik, historia bat izango da eta zentzu transzendentalean Logika praktikoaren izenpean oro har adimenaren erabileraz eskoletan bilatzen den, baina desegokiro lortzen den bera lortuko dugu. Ibon Uribarri

Hemen gure zereginaren osaketarekin askiesten gara, hots, ezagutza ororen **arkitektonika** arrazoimen hutsetik abiatuta zirrimarraztearekin, eta gure indar ezagutzailearen erro orokorra zatitzen den eta bi enbor botatzen dituen puntutik hasten gara, hauetako bat arrazoimena izaki. Ibon Uribarri

---

arkitektoniko 1 *izond* arkitekturari dagokiona.

Ondare arkeologikoa, **arkitektonikoa**, industriala, etnografikoa, artistikoa, eta liburutegiak, artxiboak eta museoak kontuan hartzen ditu Planak. Berria - Kultura

Ia erremediorik gabe erabat galduta aurkitzen zen maila ikaragarriko pentsamendu **arkitektoniko** baten aztarna. Santiago Iruretagoiena

Osagai bakoitzak zer leku izango duen zehaztu beharko dute, eta oinarrizko lehen proiektu **arkitektoniko** bat egin osagaien arabera; horretarako lehiaketara plazaratuko da. Berria - Kultura

Sastarrain bailararen atarian dagoen Lili jauregiaren analisi **arkitektonikoa** ere egingo du, etorkizunean bertan egingo den historiaurreko museoari begira. Berria - Kultura

Euskal Jai frontoiaren balio **arkitektonikoaren** eta kulturaren gaineko ikerketa egitea proposatu du Iruñeko EA alderdiak. Berria - Euskal Herria

Champs Elysées-en zehar Garaipenaren Arkurantz gindoazela, ni beti bezala begien aurrean genuenaz argibide historikoak edo **arkitektonikoak** ematen ari nintzaiola [...]. Ramon Saizarbitoria

Gainbehera leuneko teilatuek eta egituraren geometriak euskal estilo **arkitektonikoaren** ezaugarri nagusiak gordetzen dituzten arren. Berria - Kultura

Haiek ezagutzen zuten ondoena eliza haren estiloa: ezaugarri **arkitektonikoak**, higaduraren kalteak, egin beharreko konponketa-lanak. Xabier Mendiguren Elizegi

Europako kultura **arkitektoniko** guztia gutxienez hurrengo lau mendeetan sakoneraino markatuko zuen "deskubrimendua" izango zen hura. Santiago Iruretagoiena

Askatasun **arkitektonikoaren** bila. Berria - Kultura

Jendea *Architecture à la française* bat bilatzen saiatzera bultzatu nahi zuen nazionalismo **arkitektoniko** anti-italiar baten testuinguruan azaldu zen Claude Perrault-ek 1673an argitaratutako *De Architectura* jatorrizkoaren itzulpena. Santiago Iruretagoiena

Hormigoi, metal eta beiraz osatua, balore **arkitektoniko** handia zuen. Berria - Mundua

Halaber, traba **arkitektoniko** ugari dago Santa Lucian, "auzoa aldapaz eta eskaileraz josita baitago". Berria - Euskal Herria

Hirigintza aldetik, auzo aldapatsua da Otxarkoaga, eta hesi **arkitektoniko** bat baino gehiago ditu. Berria - Euskal Herria

Gida turistikoek bezala hitz egiten zuen, eta hiriko kuriosidade **arkitektoniko** guztiak komentatzen zituen enfasiz. Unai Elorriaga

Gipuzkoako ondare **arkitektoniko** industrialari buruzko bost hitzaldi egingo dira Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, ekainaren 3tik 9a arte. Berria - Kultura

Hotela "irain **arkitektoniko"** bat dela dio azken urteotan Italian moda-modan dagoen Piero Pazzi argazkilariak. Anjel Lertxundi

Egiteko daukagun lehenengo eginkizun kritiko larria Vitruvioren irudia eta obra historizatzez bukatzea izango da, behingoz haustea bai obra eta irudi horren inguruan aspaldiko mendez geroztik zabaldu den apartekotasun-aura eta bai jakintza **arkitektonikoaren** gordailu mitiko delako ideia. Santiago Iruretagoiena

Arrazoimen hutsaren Filosofia baten jatorrizko ideiak ezartzen du sailkaketa hau; beraz, **arkitektonikoa** da bere funtsezko helburuen arabera, eta ez teknikoa soilik. Ibon Uribarri

2 ***akustika arkitektoniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Akustika arkitektonikoa akustikaren adar bat da, arkitektura munduari dagokiona, eta edozein motatako eraikinen akustika era kontrolatu batean menderatzea du helburu, bai etxebizitzetan isolamendu akustiko egokia lortzeko bai lokalen egokitzapen akustikoa hobetzeko. ETC-entziklopedia

3 ***arrazionalismo arkitektoniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Arkitektura modernoaren eta arkitektura arrazionalista **arrazionalismo arkitektonikoaren** abiatzaileetakoen artean nabarmendu zen, protomodernotzat eta protoarrazionalistatzat sailkatua da. ETC-entziklopedia

Eta, **arrazionalismo arkitektonikoa** uste sakon eta pertsonal bat bilakatu zitzaien arkitekto haiengan, borondatezko atzerriratzea naturaltasun garbiz eman zela dioen ondoriora iritsi zen. ETC-entziklopedia

4 ***estilo arkitektoniko***

Kanpoko itxura ez diote aldatu tenpluari, pintatu berria badago ere: proletargo-auzo bateko handitasunik gabeko eliza da, dena porlan, dena aluminio, dena antzinako **estilo arkitektonikoen** imitazio merke eta nahasia. Iban Zaldua

Gero, fatxadaren **estilo arkitektonikoaren** ñabardura txikienak ere patxadaz aztertu zituen, baita hainbat ondorio atera ere. Patxi Iturritegi

Estilo arkitektoniko jakin bati jarraiki, lanik egingo ez duela argi eta garbi adierazteko, ondoko adibidea jarri zuen: "Alhondiga espazio zabala da, eta hori guztiori mantentzeko zutabe ugari behar dira. Berria - Kultura

5 ***oztopo arkitektoniko***

Itsuen irakasle lanak egiten dituen Alfredo Beiredek azaldu digunez, "webguneen diseinatzaileek ez dute kontzientziarik, kalean ezinduentzako **oztopo arkitektonikoak** dauden bezala, Interneten ere oztopoak daude». Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arkitektoniko bat (5)

gutizia arkitektonikoa (3)

ezaugarri arkitektonikoak (4); **traba arkitektonikoak** (3)

jakintza arkitektonikoaren (3)

---

arkitektu ik **arkitekto**.

---

arkitektura *(ETCn **17.546** agerraldi)* 1 *iz* eraikuntzak eta kidekoak proiektatzeko eta eraikitzeko antzea; antze horren emaitza. ik **etxegintza**.

Nire lagun haietako bat, **arkitektura** ikasten ari zena eta Jorge Oteizaren bileretara joaten zena, niregana makurtu eta esan zidan belarrira: [...]. Bernardo Atxaga

Labirinto bat gizonak tronpatzeko landu den etxe bat da; haren **arkitektura**, simetriaz oparoa, xede horretara makurtzen da. Juan Garzia

Alemaniarrak herri-espiritu delakoaren bila hasi zirenean, Luterok Bibliari emandako interpretazioa hartu zuten aintzat, eta beren **arkitektura**, beren literatura. Bernardo Atxaga

Datorren irailean edo urrian hirigintzari eta **arkitekturari** buruzko erakusketa antolatzeko asmoa du Donostiako Udalak, Tabako Fabrikan, Elorzak atzo aurreratu zuenez. Berria - Kultura

Pilar ilobak Perunezarre jaiotetxetik gertu Ipar Euskal Herriko etxeen **arkitekturari** jarraiki egina zion osabari etxea. Berria - Harian

Paul klee, Olivo Barbieri eta Fernand Legerren lanak ere beste mundu batzuetako **arkitekturen** parte dira. Berria - Kultura

Elkarren ondoan dautza, koroak buruan, erregea bere lehoiarekin, erregina bere erbi-zakurrarekin, marmolezko etzangian, ezkontideen hilobi hunkigarrian, inguruan, lanketarik dotoreenaren **arkitekturen** pean, figuratxo dolutu andana bat itzulikatzen dela. Koldo Izagirre

2 (izenondoekin)

Karrika nagusi luzea, etxe eta bereziki balkoi ederrak, arkuak eta Santa María elizaren **arkitektura** berezia bere hiru edo lau estiloekin. Piarres Aintziart

Turista guztiak liluraturik zeuden argi-ilunetan agertzen zitzaizkien mirari haien aurrean, eta, **arkitektura** zoragarri haren opari gehiago ikustearen egarriz, iritsi ziren, azkenik, tetrapilora. Josetxo Azkona

Potsdamer Platzen **arkitektura** garaikidearen azken gailurretako batzuk ikusten dira. Edorta Jimenez

Arkitektura modernoak XV. eta XIX. mende bitartean egin duen ibilbide konplexuaren barruan, ezinbesteko bidelagun izan zen arkitektoentzat Vitruvioren obra. Santiago Iruretagoiena

Arkitektura moderno funtzionalaren aitzindari izan zen, eta 1918an Weimarko Arte Eskolako zuzendari izendatu zuten, eta Bauhaus izenaz berrantolatu zuen. Bernardo Atxaga

B. Leroy-k, jadanik, bere printzipio gehienak greziarren arkitekturari buruzko tratatuetatik hartu izana egozten zion Vitruviori, **arkitektura** greziarra bera ezagutu ere egin gabe. Santiago Iruretagoiena

Erdipurdiko Ordena dorikoa **arkitektura** greziarreko hiru ordena klasikoetan zaharrena eta soilena da. Xabier Olarra

Arkitektura erromatarraren eboluzioaren testuinguruan kokatuta. Santiago Iruretagoiena

Egituran eta erabiltzeko arauetan bereizten diren kontzeptuen aurrean aurkituko gara, elkar kontuan hartzen ez dutenak, elkar baztertzen dutenak eta sartu ezin direnak **arkitektura** logiko baten batasunean. Xabier Arregi

3 (izenlagunekin)

Egunotako nire atzera-aurreretan ez dut gaurko **arkitekturarik**, gaurko hornikuntza urbanorik, gaurko urbanismo erakargarririk topatu. Anjel Lertxundi

Orain, bide nagusitik atera eta bazterreko batetik doaz, hiriko **arkitektura** kaotikoa atzean utzita. Patxi Iturritegi

Tenplu greziarren **arkitektura** dinteldu eta harrizkoaren aldeko interes handia. Santiago Iruretagoiena

Espresionismoaren inperialismo honek gerra ondoren jo zuen agian gailurra, **arkitektura** espresionista bat egiteko ametsak (ondo laburrak) egin zirelarik, eta zinema espresionista egin nahi izan zenean batez ere. Josu Zabaleta

Hemen, **arkitektura** geometriko modernoak, matematikaren perfekzioa harriz eta betoinez haragiztatzen du. Piarres Aintziart

Ez zait gehiegi gustatzen Eiffel-en garaian burdinari ahalik etekin gehien atera nahirik sortutako **arkitektura** exhibizionista. Anjel Lertxundi

Arkitektura bitxiko jauregi bat irudikatzen zuen, Bukharako monumentu erdi-mairu erdi-tatariar horietako bat, inondik ere. Karlos Zabala

Mussoliniren garaiari faxista-itxura betea eman zioten eraikuntza hantuste erraldoi haietatik hona -eta ez zaizkit harrokeriak gustatzen ez bizitzan ez artean-, **arkitektura** zibil deigarri gutxi egin da Italian. Anjel Lertxundi

Baina ez hainbeste, ia bertan duzue egundoko **arkitekturarik** ikaragarriena eta baliogabeena. Joseba Sarrionandia

Italiano batek esplikatu zidan behin han *architettura fascista* deritzana ekartzen diotela gogora kubotzarrek, eta faxista futurista, hain zuzen, ez faxista klasikoa, bi adar horiek omen baitzituen delako **arkitektura** faxista horrek. Iñaki Segurola

Elizaren egiazko **arkitektura**, uki daitekeen **arkitektura** trinkoa, itxuraz luzatzen duen zutabe eta arkuzko **arkitektura** baten erdi-erdian zabalik dagoen zeru margotu batean kokaturik dagoelako. Josu Zabaleta

Ikusle normalak gaur egun ere neke du harrizko **arkitektura** non amaitzen den eta margo soilez egindako **arkitektura** non hasten den bereizteak. Josu Zabaleta

-Erdi Aroko **arkitektura** -zehaztu zuen Arantxak, gogoratuz. Fernando Morillo

Egia erran, xarma gabeko **arkitekturari** ez zion kasurik emaiten. Ramuntxo Etxeberri

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

'High School' delakoa hamasei urterekin bururatu zuelarik, zuzenbidea eta **arkitektura** ikasketen artean zer hauta zalantzan egon zen. Ramuntxo Etxeberri

Arkitektura estiloaren aldetik modernista, inguruko eraikin berriekin kontraste handiaren sentsazioa sortarazi zidan. Edorta Jimenez

Burdinazko haga sortu zuen industri teknikaren mutazioak Mendebaldeko arkitektoaren eskuetan oso aldakorra zen eraikuntza-material berri bat jarri zuen, **arkitektura**-tradizio helenizatzailea argi eta garbi ahitua zegoen garai batean. Iñaki Mendiguren

Faktoria suntsitzen eta habearte berriak eraikitzen jarraitu zuten, **arkitektura** ondarea babesteko lege eta araudi guztien gainetik jauzi eginez. Iban Zaldua

Antzinako **arkitektura**-aztarnen ikerketa exhaustiboko kanpainak. Santiago Iruretagoiena

Hogeigarren mendean Mendebaldeko Europako hiriak artean katedral "gotikoek" menderatuta zeuden, beren aurreko erromanikoak ordeztu zituztelarik, Erdi Aroan Mendebaldean, mundu siriakoko **arkitektura**-inpaktuak lasterragotuta, izan zen **arkitektura**-iraultzaren ondorioz. Iñaki Mendiguren

5 irud/hed

Uste izateko zen moduan, urratsez urrats eraikitzen da **arkitektura** hori, eta gene multzo berezi baten kargu dago urrats bakoitza. Juan Garzia

Genetikak Organismoen planoa aztertzen du; leinu germinalak transmitituriko gene sorta batek dauka bere baitan plano hori, eta haren arabera definitzen da geroko organismoaren **arkitektura**. Juan Garzia

Zalantzarik gabe jasan behar dugu sistema filosofiko baten **arkitektura** deskribatzen dela, eta ez hainbeste arima baten historia edo existitzeko egitasmo bat. Xabier Arregi

Sailkapen hori egitea ez al zen, horrenbestez, matematikaren **arkitektura** osoa berregitea! Jon Muñoz

Otorduak gauza delikatu eta ezustekoz osatuak ziren, eta sukaldariek etengabe bestelakotzen zuten janarien **arkitektura**. Juan Garzia

Zinema plastikoa da lehenik eta behin: zinemak mugitzen ari den **arkitektura** bat irudikatzen du, nolabait esateko; beti ados, orekaturik egon behar du eraikiz eta eraitsiz doan ingurumenarekin eta paisaiekin. Josu Zabaleta

Nobela konstrukto bat da, **arkitektura** hutsa. Ana Urkiza

Iraultza baten ateak ireki ditu azterketa honek, batez ere landare baten **arkitektura** osoa nolakoa den erakusten duelako, eta **arkitektura** horrek erabili behar dituen piezak aldatzeko modua eskaini, landare horretan eta gainerakoetan. Pello Salaburu

Azken batean, mementoko euskal arazo politikoa honetara mugatzen da: erabaki behar da autogobernua zein **arkitektura** politikotan, gaurko Europaren barnean zein subiranotasun hierarkiaren baitan kokatu behar den. Joseba Zulaika

"Independentzia", "subiranotasun konpartitua", "eredu federala", "autonomia", eta abar **arkitektura** juridikoaren egitura alternatiboak ispilatzen dituzten nozioak dira. Joseba Zulaika

Horrela gramatika klasikoaren **arkitektura** kontzeptuala eratu ahal izango litzateke atzera. Xabier Arregi

Proposizioen egia eta batzen dituzten harremanak aztertuta ez-kontraesan logikoen arlo bat defini daiteke: sistematikotasun bat aurkituko da orduan; esaldien gorputz ikusgarri batetik igoko da **arkitektura** huts ideal batera. Xabier Arregi

Tanpez, hondartza lau eta leun batean azaltzen zara, harkaitz, ganbera, arkupe, zulo eta leize labirinto galgarri baten erdian, uhin artera anabasa batean jaurtitako **arkitektura** bitxia, zeruak urdinez, eguzkiz, argiz eta itzalez, itsasoak aparrez, haizeak murmurioz betea. Koldo Izagirre

Gizarte **arkitektura** aldatu egin da, mundua galtzaile eta irabazleen artean banatuz, parametro geogra? koen arabera baino gehiago. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Artista bakoitzaren gogamenaren sakonaldeak badu eredu moduko bat edo **arkitektura** mota bat. Xabier Olarra

Horra agerian hainbat generen barne-**arkitektura**, ADN zati aukeran labur samarren mihiztaduraz osatuak baitira eta zati bakoitzak kodetzen baitu proteina-eredu bat. Juan Garzia

6 *arkitektura arkitrabatu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Eraikuntza sistema sinpleak erabili zituzten, pilaketan eta **arkitektura arkitrabatuan** oinarrituta. Formak ere nahiko sinpleak dira. ETC-entziklopedia

7 *arkitektura arrazionalista* *(corpusean ez dago; ETCn 103 agerraldi)*

Arkitektura arrazionalistaren jarraitzaileak ziren biak, eta tradizioa modernitatearekin nahasten zuen proposamena aurkeztu zuten. ETC-literatura, saiakera

Margolan hauen ondoan **arkitektura arrazionalistak** agertzen dira: Donostiako Nautikoa, AEG enpresaren pabiloia... berriz ere kolore lauak eta ingurune zehatzak azpimarratuz. ETC-prentsa

36ko gerra osteko Euskal Herrian aurki daitekeen **arkitektura arrazionalistaren** adibide bakanetakoa da, eta horrek are beharrezkoago bihurtzen du, Zuaznabarren ustez, eraikinari zutik eustea. ETC-prentsa

Arkitektura arrazionalista da, oso ordenatua eta uniformea. ETC-prentsa

Guztiak **arkitektura arrazionalistaren** ildokoak, eta aurrez sekula erakutsi gabeak dira haietariko asko. ETC-prentsa

Erakusketako testuan diozunez, adibidez, duela hamar urte bukatu gabe utzitako eskultura serie batera eraman zaitu aurten bukatu duzun Gineako egurrezko zoruak eta **arkitektura arrazionalista** uztartzen dituen pieza sortak. ETC-prentsa

XX. mende erdialdera gutxi gorabehera, Espainiako **arkitektura arrazionalistak** koloniekin izandako harreman eta eragin zuzenaren inguruan gogoeta egitera. ETC-prentsa

Gerra ondorengo **arkitektura arrazionalistaren** azken ikurra, Donostian, Pasai Antxoko mugan. ETC-prentsa

Arkitektura eta hirigintza ofi ziala, gerraurreko urteetan garatu eta orokortu zen hirigintza liberal eta **arkitektura arrazionalistaren** kontrako kritikekin lagundu zen, jada Alemanian, Italian eta Portugalen ere egin zituztenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Euskal Herriko **arkitektura arrazionalistaren** aleetako bat. Itsasontzi itxura dauka, eta 1995ean monumentu historiko artistiko izendatu zuten. ETC-entziklopedia

1929an Jose Manuel Aizpurua eta Joakin Labaien arkitektoen diseinuan oinarrituta Kontxako hondartzaren ertzean eraikia, **arkitektura arrazionalista** hutsa. ETC-entziklopedia

1892 - Manuel Ignacio Galíndez, bizkaitar futbolari eta arkitektoa, **arkitektura arrazionalistaren** aurrekaria (h. 1980). ETC-entziklopedia

8 *arkitektura banatu* *(corpusean ez dago; ETCn 8 agerraldi)*

Arkitektura Banatua: sistemaren adimena modulu guztietan zehar (sentsoreak eta eragingailuak) sakabanaturik dago. Bus bidezko edo haririk gabeko sistemetan erabili ohi dira. ETC-entziklopedia

Javaren teknologiaren RMI APIa erabilita, klase eta interfaze arruntak erabiltzen dira **arkitektura banatu** horiek eraikitzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

25. kapituluan, bezero-zerbitzari arkitektura eta **arkitektura banatu** gehiago ikusiko ditugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arkitektura banatuak nodo prozesatzaile batek baino gehiagok osatzen dituzte, komunikazio sare baten (edo gehiagoren) bitartez konektatuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *arkitektura barroko* *(corpusean ez dago; ETCn 175 agerraldi)*

Arkitektura barrokoa europako arkitekturaren garai zehatz batean sortu zen arkitektura estilo bat da, barroko mugimendu orokorraren baitan. ETC-entziklopedia

Arkitektura barrokoaren gune nagusi bihurtu zuten Europan. ETC-prentsa

Horrez gainera, Varazdin hiriburuari darion dotoretasunagatik da ezaguna Zagorje; **arkitektura barrokoko** adibiderik adierazgarrientzat jotzen da hura. ETC-prentsa

Galiziako barrokoa diferentea da, bere nortasuna du eta hau gure **arkitektura barrokoaren** adibiderik ederrena da. ETC-prentsa

Barrokoaren gaur egungo kontzeptua, euskal **arkitektura barrokoaren** topagune eta jarrera tipologikoak, irudi erlijiosoaren bilakaera, pintura, euskal. ETC-prentsa

Igoera patxadatsua da eta beta izango dugu Moyua dorrearen **arkitektura barroko** dotorea ikusteko. ETC-prentsa

Gehiegizko ozentasunean -klarinete bakarlaria garrasika- eta Mendelssohnek gomutarazten duen **arkitektura barrokoari** erreparorik hartu gabe. ETC-prentsa

10 *arkitektura bisigotiko* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Harrizko saretak ohikoak ziren **arkitektura bisigotiko** eta arte asturiarrean. Motibo zelta eta germaniarrekin zizelkatuak zeuden, soka formako apaingarriekin eta arrosa-leiho txikiekin. ETC-entziklopedia

11 *arkitektura bizantziar* *(corpusean ez dago; ETCn 19 agerraldi)*

Arkitektura bizantziarraren hedatzearekin bat egiten du, eta harekin loturik dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

12 *arkitektura brutalista* *(corpusean ez dago; ETCn 11 agerraldi)*

Brutalismoa edo **Arkitektura Brutalista** 1950tik 1970era zabalkunde handia izan zuen estilo arkitektonikoa da. ETC-entziklopedia

Izan ere, hori baita erakusketako erreferentzia nagusietariko bat: **arkitektura brutalista**. ETC-prentsa

Eztabaida dago nazioartean: zer egin **arkitektura brutalistaren** mugimenduko eraikinekin? Erresuma Batuan, eskuinak bota egin nahi ditu, utopia sozialisten munstrotzat dituelako, baina miresleak ere badituzte. ETC-prentsa

Errenteriako San Jose Langile elizarekin Euskal Herriko **arkitektura brutalistako** adibideetako bat da doktorego eman zidan Franco jaunak, 1968an, hura oso berezia zelako diseinatzeko eta kalkulatzeko. ETC-prentsa

13 *arkitektura egiptoar* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Xemeingo hilerrian, hizkuntza neoklasikoaren erabilera berezia ikusten da **arkitektura egiptoarraren** birsorkuntza hori dela eta. ETC-entziklopedia

14 *arkitektura eklektiko* *(corpusean ez dago; ETCn 18 agerraldi)*

Arkitektura eklektikoa, nagusiki, joera arkitektonikoak konbinatzen aritzen da. Honela, bere ezaugarri nagusia, bi arkitektura estilo edo gehiago, egitura berri batean konbinatzea da. ETC-entziklopedia

Bauhaus estiloko eraikinak, hotel modernistak, kristalezko kupulak... iraganeko **arkitektura eklektiko** bezain aberatsaren lekuko irmoa dira. ETC-prentsa

Arte Ederrak eraikina Donostian dugun **arkitektura eklektikoaren** erakusgarri nagusietarikoa da. ETC-prentsa

Bi eraikinak arkitekto berberarenak dira, eta zerbitzu etxea bertako **arkitektura eklektikoaren** erakusle nabarmena da. ETC-prentsa

1000.era bitartean Oaxaca ibarreko mendialdean, Mexikoko hegoaldean, loratutako zibilizazio amerindiarraren **arkitektura eklektikoa**. ETC-zientzia, zuzenbidea

15 *arkitektura ekologiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Treehuggerren **arkitektura ekologikoko** sariak. ETC-entziklopedia

16 *arkitektura erlijioso*

Gero eta leku gehiagotan ari da lanean, era askotako guneak ikertzen: ekoizpen ekonomikoarekin lotutakoak (Igartzako burdinola, adibidez), arkitektura militarra (Atxukaleko gotorlekua), **arkitektura erlijiosoa** (Astigarribiko San Andres eta Buruntzako San Martin elizak), arkitektura zibil tradizionala (Erretxabal eta Sosoaga Txiki baserriak) eta erdigune historikoak (Getaria, Hernani, Segura, Tolosa...). Berria - Kultura

17 *arkitektura erromaniko* *(corpusean ez dago; ETCn 565 agerraldi)*

Arkitektura erromanikoa arkitektura estilo bat da, Europan jaioa eta Behe Erdi Aroa Behe Erdi Aroko urteetan garatua (950 ingurutik XII. menderaino). ETC-entziklopedia

Eraikina itxita dago -partikularra da eta jabeek biltegi gisa erabiltzen dute-, baina merezi du haraino hurbildu eta, herriaren ikuspegi ederra profitatzeaz gain, eraikinari begiratua ematea, **arkitektura erromanikoaren** zenbait elementu kontserbatzen baititu; deigarrienak, atea eta arrosa-leihoa. ETC-prentsa

Hain zuzen, horretan datza aurkikuntzaren garrantzia: datazioa konfirmatzen bada, nafar **arkitektura erromanikoaren** adibiderik puru eta garbienetako bat izanen da Larunbekoa. ETC-prentsa

Eliza dotore erakusten du: zoritxarra gain-gainera etorri zitzaion 36ko gerran, eta erabat suntsituta geratu zen, **arkitektura erromanikoa** betiko galtzeraino, Micaela Portilla ikerlariak bere katalogo artistikoan jakinarazia duenez. ETC-prentsa

Arkitekturari ere erreparatzen dio argazkilariak: baserri hutsek, Arantzazuko santutegiak eta **arkitektura erromanikoak** indar handia dute. ETC-prentsa

Erdi Aroko **arkitektura erromanikoaren** adibide ezin hobea da, eta Bariko San Nikolasi dedikatua zaio, bidaiari eta beilarien gerizatzaile. ETC-prentsa

Arkitektura erromanikoaren azken arrastoak nabari dira, eraikina babeslekua izatea nahi zuten eta. ETC-prentsa

Baina orain aztertzen ari garen garaiari buruzko idazkiak, **arkitektura erromanikoarekin** batera sortu zirenak, oso erraz irakur daitezke. ETC-literatura, saiakera

751-987 bitartean eta Alemanian 911 arte gobernatu zuen dinastia frankoaren **arkitektura erromaniko** goiztiarra. ETC-zientzia, zuzenbidea

Angelu sartuz eta irtenez -kontrako erpinak dituztela- eratutako apaindura, **arkitektura erromanikoaren** ezaugarri. ETC-zientzia, zuzenbidea

18 *arkitektura erromatar*

Kontua ez da, noski, kronologia hutsezkoa izango, ikusten baita De Architectura honetan, era berean, ahaztu edo zokoratu egiten direla **arkitektura erromatarraren** beraren aurreko eta garai bereko hainbat zedarri esanguratsu jakin ere. Santiago Iruretagoiena

19 *arkitektura espresionista*

Espresionismoaren inperialismo honek gerra ondoren jo zuen agian gailurra, **arkitektura espresionista** bat egiteko ametsak (ondo laburrak) egin zirelarik, eta zinema espresionista egin nahi izan zenean batez ere. Josu Zabaleta

20 *arkitektura estilo*

Arkitektura estiloaren aldetik modernista, inguruko eraikin berriekin kontraste handiaren sentsazioa sortarazi zidan. Edorta Jimenez

Erdipurdiko, izond **Arkitektura estilo** batekoa; Amerikar Ertaina ere deitzen zaio. Xabier Olarra

Estatuaren etxe harrizko bat, **arkitektura-estilo** jakin baten eredukoa, leihoen erdiak itxurazkoak zeuzkana, bakar-bakarrik eraikia herriko burges txikien zurezko etxetxo solairu bakarrekoen erdian. Jose Morales

Gipuzkoako elizen **arkitektura estiloak** ere aztertzen ditu ale honek, eta argazki askok laguntzen dute azalpenak ulertzen. Berria - Kultura

Orconerako etxeak dira industrializazioak Barakaldoko Lutxana auzunean lagatako arrastoen erakusle, XX. mendearen hastapenean, Erresuma Batuan gailendu zen **arkitektura estiloaren** ikur izateaz gainera. Berria - Kultura

21 *arkitektura gorri* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arkitektura gorria izenarekin herri arkitektura mota bat da. Erabiltzen diren materialen ondorioz eraikinek kolore gorri berezi bat dute. ETC-entziklopedia

22 *arkitektura gotiko*

Arkitektura "gotiko " bat, hamaseigarren mendeko lehenengo laurdena arte Londresen -eta hamazazpigarren mendeko lehen erdia arte Oxforden- irmo iraun zuena, ordurako aspaldi kanporatua zegoen Ipar eta Erdialdeko Italiatik. Iñaki Mendiguren

23 *arkitektura greziar*

Bere Vitruvio hori, ordea, autoritatezko argumentu bat besterik ez da, jadanik, **arkitektura greziarraren** aurka beste arkitektura etrusko-erromatarraren nagusitasunaren alde egiten duen defentsa horretan (Leroy baten aurka, beste batzuen artean). Santiago Iruretagoiena

Erdipurdiko Ordena dorikoa **arkitektura greziarreko** hiru ordena klasikoetan zaharrena eta soilena da. Xabier Olarra

24 *arkitektura historizista* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Arkitektura historizista edo historizismoa, nagusiki XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran garatu zen, eta, bere ahalegin guztiak, iragan garaietako arkitektura berreskuratzeko ziren. ETC-entziklopedia

25 *arkitektura-ingeniaritza* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arkitektura-ingeniaritza eta eraikuntza-ingeniaritza. Eraikuntzan eta eraikinetan espezializatzen da. ETC-entziklopedia

26 *arkitektura iraunkor* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Arkitektura iraunkorra edota ekologikoa ingurumenarekin errespetu handiz jokatzen dutenak dira eta energiaren erabilpen iraunkorra egiten dute. ETC-entziklopedia

Rogersek esaten duenez, **arkitektura iraunkor** batek beharrezkoak ditu ekologia eta zaharberritzea. ETC-prentsa

Askotariko gaiak ukituko dituzte, hala nola energia eredua eta zor ekologikoa, **arkitektura iraunkorraren** ereduak, produktu ekologikoak eta janari lasaia... ETC-prentsa

Goragoko hurrengo lau solairuetan bulegoak daude, gehienak ingeniaritza eta **arkitektura iraunkorrarekin** lotutakoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

27 *arkitektura islamdar* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Taj Mahal jauregiaren adibiderik ederrentzat jotzen da, **arkitektura islamdar**, persiar, arkitektura indiar eta are otomandarreko elementuak uztartzen dituen estiloan eraikia. ETC-entziklopedia

Hiru monumentuek adierazagarri dira arkitektura-estilo ugariren batuketarena: arkitektura bizantziarra, persiarra, ekialdeko ortodoxoa, asiriarra, **arkitektura islamdarra** eta armeniarra. ETC-entziklopedia

28 *arkitektura islamiar* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Horrekin batera, interaktiboak diren hainbat gailu ere batu dizkiote: usaimena lantzeko hiru mahai, arabiar kaligraa garatzeko beste mahai bat, eta bisitariek osatu dezaketen buru-hausgarri erraldoi bat, **arkitektura islamiarrean** gehien erabiltzen diren elementu geometrikoekin. ETC-prentsa

Arkitektura islamiarreko dekorazio-sistema, albeoloen, tronpen eta piramide alderantzikatuen nahastura korapilatu eseki batez osatua; zenbaitetan, harriz egiten zuten, baina, gehienetan, igeltsuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kultura eta **arkitektura islamiarra**, merkataritza etnikoa turismoa eta aisialdia konbinatzen ditu. ETC-entziklopedia

Berdina esan daiteke islamdar arkitektura edo **arkitektura islamiarrari** buruz, non forma erromatarrak eragin handia izan zuten denbora luzean zehar, bereziki eraikin pribatuetan (etxeak, bainuak) eta eraikin zibiletan (zubiak, gotorlekuak). ETC-entziklopedia

29 *arkitektura islamiko* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Islamdar arkitektura edo **arkitektura islamikoa** Islamaren kultura duten edo izan dutenen arkitektura da, erlijio honen sorreratik gaur arte, batez ere Al-Andalus eta India arteko eskualdeetan garatu dena. ETC-entziklopedia

XI. eta XIII. mendeen bitartean Asiako erdialdea eta mendebaldea gobernatu zuten zenbait dinastia turkiarren **arkitektura islamikoa** ; arkitektura persiarraren oso eragin handia zuen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bastakia, senaiaren aldamenean, hirurogei etxe haize-dorredun izateraino hazi zena, etxe- **arkitektura islamikoaren** adibiderik ederrenetakoa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

30 *arkitektura jasangarri* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Zer garrantzi du **arkitektura jasangarriak** Lakaben? ETC-prentsa

Arkitektura jasangarriarekin eta auzolanarekin lotura duen proiektu bat burutuko dute igandean bertan, Añorgan, herritarrek parte hartu duten prozesu baten bitartez plaza "txukundu" eta beraien beharretara moldatu baitute, Añorga Kultur eta Kirol Elkartea gidari. ETC-prentsa

Bertan, enpresa eta unibertistate askok erakutsi dute kontzeptu honetan sakontzeko interesa, materialak diseinatzeko orduan, baita **arkitektura jasangarria** gauzatzerakoan ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

31 *arkitektura klasiko*

Berak ordezkatzen zuen **arkitektura klasikoaren** printzipioak arkitekturaren beraren printzipio unibertsal bezala hartuz izan ziren hiru mendetik gorako epe horretan. Santiago Iruretagoiena

32 *arkitektura manierista* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Arkitektura manierista Europan Pizkundearen amaieraren eta Barrokoaren hasieraren artean (1530etik 1610ra, gutxi gorabehera) garatu zen arkitekturaren aldia izan zen. ETC-entziklopedia

33 *arkitektura minoiko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Arkitektura minoikoa K.a. 2000-k.a. 1400. urteen artean (ggb.) Kretan garatu zen zibilizazio minoikoaren arkitektura da. ETC-entziklopedia

Mizenas hiriko izena hartzen du. **Arkitektura minoikoaren** bidea jarraitzen du, aldaera batzuekin. ETC-entziklopedia

34 *arkitektura mizenastar* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arkitektura mizenastarra, megaroi-arkitektura izenez ezaguna da ere, eta oso garrantzitsua izan zen ondoren garatu zen Greziar arkitektura Arkitektura greziarrarentzat. ETC-entziklopedia

35 *arkitektura moderno*

80ko hamarkadan teorikatik praktikara pasatu zen eta 90eko hamarkadan bere lanik ospetsuenak egin zituen; **arkitektura modernoaren** ikono bihurtu zen. Berria - Kultura

Egokitze-saio horiek ez ziren inoiz errazak izan, eta leialtasun filologiko-historikoaren eta **arkitektura modernoak** zituen premien arteko tentsioaren markarekin azalduko ziren beti. Santiago Iruretagoiena

Idurseko Museoa egin zuen gero, eta beste eraikin batzuk, Idusen eta Europako hiri batzuetan, eta mugarriak izan ziren guztiak **arkitektura modernoan**, eta guztiek eman zuten zeresana. Unai Elorriaga

Arkitektura moderno funtzionalaren aitzindari izan zen, eta 1918an Weimarko Arte Eskolako zuzendari izendatu zuten, eta Bauhaus izenaz berrantolatu zuen. Bernardo Atxaga

Harrigarriena, dena dela, **arkitektura modernoaren** azken aleek baino aho zabalago utzi ninduena, Margarengan deskubritzen hasi nintzena. Xabier Montoia

36 *arkitektura nazi* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arkitektura nazi izenarekin, baita ere Nazionalsozialismoaren arkitektura, Adolf Hitlerren ideiologia megalomanoa eraikuntzaren alorrera eramateko saiakerari esaten zaio. ETC-entziklopedia

36 *arkitektura neoklasiko* *(corpusean ez dago; ETCn **119** agerraldi)*

Arkitektura neoklasikoa XVIII. mendearen bigarren erditik XIX. mendearen lehen erdira arte, Neoklasizismo garaian, europar kulturak garatu zuen arkitektura estilo nagusia da. ETC-entziklopedia

Espainiako **arkitektura neoklasikoaren** gailurretako bat da eraikin hori. ETC-prentsa

Arkitektura neoklasikoa agertzen du 1842an eraikitako ikuztegiak. ETC-prentsa

Han dago hiriko udaletxea, **arkitektura neoklasikoaren** adierazle. ETC-prentsa

Pérez arkitektoak Donostiara etorri izanak **arkitektura neoklasikoaren** presentzia areagotu zuen hiriko zabalgunean. ETC-zientzia, zuzenbidea

38 *arkitektura ordena klasiko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Joniar ordena, kronologikoki, ordena klasiko **arkitektura ordena klasikoetatik** bigarrena izan zen, bere jatorria K.a. VI. mendean izan zuelarik. ETC-entziklopedia

Pilastra (pilare hitzetik eratorritako hitza), zutabeak edo pilareak osatuta dauden eraikuntza elementu berberez osatua dago: harroina, fustea eta kapitela, **arkitektura ordena klasikoen** arabera. ETC-entziklopedia

39 *arkitektura oztopo* *(corpusean ez dago; ETCn **32** agerraldi)*

Arkitekturaren eta hirigintzaren esparruan, **arkitektura oztopo** edo oztopo arkitektoniko esaten zaie biztanle-talde jakin batzuk hiri-espazio batetik, eraikin batetik edo haren zati batetik iristea, sartzea edo mugitzea eragozten duten oztopo fisikoei. ETC-entziklopedia

Bat harritzen da, aintziraren ertza pabiloiarekin lotzen duen zubia sigi-sagakoa baita, zuzena izan beharrean, hartara behartzen duen **arkitektura-oztoporik** ez dagoelarik. ETC-literatura, saiakera

Joan den urtean San Lorentzo elizak **arkitektura oztopo** asko zituen, eta aurten traba berberak dauzka. ETC-prentsa

Besteak beste, eskola ibiltariak antolatzeko, itunpeko ikastetxeetan **arkitektura oztopoak** kentzeko eta irakasleen prestakuntza sustatzeko. ETC-prentsa

Ezin dira isildu, Heldu-ren aburuz, **arkitektura oztopo** horiek direla-eta oraindik ere eraikin publiko asko "iristezinak" direlako batzuentzat. ETC-prentsa

Erakusketa hall-a handituko dute, espazio teknikoak berrantolatuko dituzte eta **arkitektura oztopoak** desagerrarazten ahaleginduko dira, irisgarritasuna errazteko. ETC-prentsa

Arreta ginekologikoa ematen duten 60 zentro ikertu dituzte, eta **arkitektura oztopoak** zein egokitu gabeko tresneria dutela ikusi dute. ETC-prentsa

Arkitektura oztopoak gainditu dituzte eta atariaren itxura erabat berritu dute. ETC-prentsa

Arkitektura-oztopoen kentze lanak tzuak baino ez dituzte eskainiko osasun etxeetan. ETC-prentsa

Azkenik, Euskadi etorbideko eta inguruko **arkitektura oztopoak** kentzeko 467.000 euro emango ditu Zapateroren Gobernuak. ETC-prentsa

Foru Komunitateko administrazioak eta toki-entitateek urtebeteko epea izanen dute foru lege honek indarra hartzen duenetik aitzina, **arkitektura-oztopoei** buruz xedatutakora egokitu ditzaten euren kirol-instalazioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

%40, lehentasunez zaharberritu beharreko eremuetan, edo **arkitektura-oztopoak** kendu eta mugimenezko minusbaliotasuna duten pertsonen onurarako denean, edo eskatzaile batek edo haren ezkontideak 65 urte edo gehiago dituztenean. ETC-zientzia, zuzenbidea

40 *arkitektura paleokristau* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Erromatar arkitektura antzeratzeko asmoarekin sortu zen (Inperioa berdindu nahian), baina gehiengoa **arkitektura paleokristau** eta arkitektura bizantziarretik mailegatu zuen. ETC-entziklopedia

41 *arkitektura pizkundetar* *(corpusean ez dago; ETCn **82** agerraldi)*

Filippo Brunelleschik Panteoia aztertu zuen Florentziako Santa Maria del Fiore katedrala eraikitzeko, pizkundetar arkitektura edo **arkitektura pizkundetarraren** abiapuntua. ETC-entziklopedia

San Pedro eliza: estilo gotikoa eta **arkitektura pizkundetarra** batzen ditu. ETC-entziklopedia

42 *arkitektura sakratu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

20 mendeotako **arkitektura sakratua** eta ikonografia erlijiosoa aztertu ditu Juan Plazaolak. ETC-prentsa

Kupulaerdi batzuekin batera, eta argi-jokoaren eta arte bizantziarraren mosaiko tipikoen arteko barne-konbinazioa gehituta, grabitate eta materialtasun ezaren sentsazioa ematen dute, eta hori, hainbat bidetatik, hurrengo mendeetako **arkitektura sakratuaren** etengabeko bilaketa bihurtuko zen. ETC-entziklopedia

43 *greziar arkitektura* *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Alexandroren konkista ugarien ondoren, ekialdeko eragin sakona jaso zuen **greziar arkitekturak**. ETC-entziklopedia

Antzinako **Greziar arkitektura** jainkotegiengatik da ezaguna batez ere. ETC-entziklopedia

Greziar arkitektura hirietako akropoli edo gotorleku garaietan eta santutegi panhelenikoetan garatuz joan zen, eta tenpluen itxura finkatu zuen. ETC-entziklopedia

Greziar arkitektura klasikoa eta bere aurrekaria, egear arkitektura, egitura arkitrabatuen adibide tipikoak dira, lehenago, eraikin monumental egiptoarrak ere, estalki lau edo ateburudunekin eraiki ziren arren. ETC-entziklopedia

44 *informazioaren arkitektura* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Informazioaren arkitektura diziplina bat da (artea eta zientzia diren moduan), informazio-inguruneak egituratu, antolatu eta etiketatzean oinarritzen dena. ETC-entziklopedia

Beraz, produktuaren ezaugarriak aztertzen dira, **informazioaren arkitektura** eta bisualizazioa egokia den, elementuak egoki banatuta dauden etab. aztertuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

45 *konputagailu arkitektura* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Konputagailu arkitektura ordenagailu edo konputagailu baten oinarrizko egitura eta eragiketarako diseinua da. ETC-entziklopedia

Gaur egun arkitektura kontzeptua beste jarduera batzuetan ere erabiltzen da, batik bat, sistema konplexuen diseinuaz hitz egitean: **Konputagailu arkitektura** konputagailuen arkitektura esaterako. ETC-entziklopedia

Atebidea edo pasabidea sare protokolo eta **konputagailu arkitektura** maila guztietan ordenagailuak elkar lotzea eta komunikatzeko sareak sortzea ahalbideratzen duen gailu bat da. ETC-entziklopedia

Hainbat sistema eragiletan eta **konputagailu arkitekturatan** egikaritzen da. ETC-entziklopedia

Produktu batzuek **konputagailu-arkitektura** paraleloetarako prozesatze paraleloa eskaintzen dute, eta prozesatze analitikoko lineako tresnen (Online Analytical Processing,

OLAP) parte gisa funtzionatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Testu honetan aztertzen dira, besteak beste, azken mendeko hazkunde-tasa ikaragarria ahalbidetu zuten **konputagailu-arkitekturari** buruzko ideiak eta konpiladoreen hobekuntzak. ETC-zientzia, zuzenbidea

46 *konputagailuen arkitektura* *(corpusean ez dago; ETCn **80** agerraldi)*

Informatika eta teknologiarekin harreman zuzena duena; bere sortzaileetakotzat jotzen da John von Neumann -**konputagailuen arkitektura** modernoaren aitzindarietako bat-. ETC-prentsa

Testuingurua: **Konputagailuen arkitekturaren** eta antolaketaren azalpen orokorra da, eta sistema eragileen diseinuarekin lotutako gaiak lantzen ditu bereziki. ETC-zientzia, zuzenbidea

CER ikerketa lerroaren barruan **konputagailuen arkitektura** adarrean eta zehatzago S/I azpisistemaren inguruko azterketa bakarrenetako da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konputagailuen arkitektura John Von Neumannek 1945. urtean proposatutakoa da oraindik, funtsean, oinarrizko egitura gisa. ETC-entziklopedia

Gaur egun arkitektura kontzeptua beste jarduera batzuetan ere erabiltzen da, batik bat, sistema konplexuen diseinuaz hitz egitean: **Konputagailuen arkitektura** esaterako. ETC-entziklopedia

47 *paisaia arkitektura* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Paisaia arkitektura: edozein paisaia eta garten proiektatzean, diseinatzean eta kudeatzean datza. Horrela: paisaia diseinugintza, paisaia ingeniaritza, paisaia proiektugintza, paisaia lorezaintza, paisaia ekologia, paisaia biologia, paisaia arkitektoa, paisaiagile edo paisaiaria. ETC-entziklopedia

Paisaia-arkitekturaren historiako izen nagusiak bi dira: André Le Nôtre (1613-1700), lan arrakastatsuenen artean Versaillesko parkea eta hiria proiektatu zituena; eta Lancelot "Capability" Brown (1716-1783), Blenheim jauregian izan zuen parte-hartzea dela-eta ezagun egin zena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Paisaia arkitekturaren eta artearen ertzak bustitzen dituen esku-hartze eremu zabala da. ETC-zientzia, zuzenbidea

48 *sare arkitektura* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Lehiaketa irabazteko, neurona sare konboluzionalak erabili zituzten, 22 urte lehenago Lecunek asmatutako neurona **sare arkitektura**! ETC-prentsa

Baina badago beste **sare-arkitektura** bat, aurreratuagoa, zuntz optikozko instalazioan oinarria duena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Linux-ek hainbat **sare-arkitektura** onartzen ditu, bereziki TCP/IP, Berkeley Sockets interfazearen bitartez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zer diren **sare-arkitektura** bat, mailak, zerbitzuak, protokoloak, mailen arteko interfazeak, eta maila bateko entitateak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Topologia hau erabiltzen duten **sare arkitekturarik** nagusienak Ethernet (IEEE 802.3 araua) eta Token bus (IEEE 802.4 araua) dira. ETC-entziklopedia

Honek abiadura handiagoa hartzen du, eta **sare arkitekturak** ere ezberdintasunak ditu. ETC-entziklopedia

49 *sistema eragileen arkitektura* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Sistema eragileen arkitektura edo egitura sistema eragilearen nukleoaren osagaiak zeintzuk diren, nola antolatzen eta nola elkar funtzionatzen duten deskribatzen duen irizpidea edo sailkapena da. ETC-entziklopedia

50 *software arkitektura* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Sunen Collections APIak antzekotasun handiak ditu JGL liburutegiarekin, nahiz eta, bata eta bestea eraikitzeko erabili diren **software-arkitekturak** desberdinak izan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nolanahi ere, benetako berrikuntza garrantzitsu eta azpimarragarriena zera da: guztiz irekia den **Software arkitektura** izatea. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arkitektura bat (4); **arkitektura baten** (3); **arkitektura da** (3); **arkitektura edo** (4); **arkitektura egin** (3); **arkitektura erromatarraren** (3); **arkitektura eskolako** (3); **arkitektura eta eskultura** (3); **arkitektura ez** (3); **arkitektura ikasi** (3); **arkitektura ikasketak** (4); **arkitektura ikasten** (6); **arkitektura lan** (3); **arkitektura sari** (4); **arkitektura zibil** (3); **arkitektura zuzendariak** (3); **baita arkitektura** (3); **barne arkitektura** (3); **baten arkitektura** (7); **bere arkitektura** (5); **da arkitektura** (7); **den arkitektura** (8); **duen arkitektura** (3); **dut arkitektura** (4); **edo arkitektura** (4); **egindako arkitektura** (5); **erdi aroko arkitektura** (3); **garaiko arkitektura** (3); **haren arkitektura** (3); **pritzker arkitektura** (4); **zen arkitektura** (3); **zinema eta arkitektura** (3)

arkitekturako ikaslea (3)

arkitekturaren alorrean (3); **arkitekturaren teorian** (3); **da arkitekturaren** (3)

arkitekturari buruz (4); **arkitekturari buruzko** (8)

---

arkitektural *izond* arkitekturari dagokiona.

Aitzineko aste buruan muntatu zen kolektibo bat bastiza horren interes **arkitekturala** eta auzoko kultur beharrei ihardesteko gaitasunaren gatik, zutik atxikitzea galdatu duena. Herria

Nahiz eta indar bereziak egin hiriaren ondare **arkitekturala** zaintzeko, askok salatzen dute bizi den kulturaren alde ez duzuela gauza handirik egiten, ez dela proiektu orokorrik.. Berria - Euskal Herria

Dong gogoratu zen "Skyroom" izeneko altxor **arkitekturalaren** suntsitzearen kontrako manifestaldi batean parte hartu zuela. Ramuntxo Etxeberri

---

arkitrabatu *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)* **1** *iz* arkitrabez egina.

Arkitrabatu ere esaten zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bizkaia Bizkaiko baserri tipikoa, tipologia ikuspuntutik atari **arkitrabatuen** baserrien taldean sailkatzen dena eta XVII. mendearen azken herena baino lehenagoko kronologiaduna. ETC-entziklopedia

Pilareen gainean arkuteria edo sistema **arkitrabatua** edo ataburuduna jartzen dira. ETC-entziklopedia

Tenplua **arkitrabatua** da, hau da, sabaian lerro horizontal eta bertikalak topatzen dira sare-antzeko bat osatuz. ETC-entziklopedia

2 *arkitektura arkitrabatu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Eraikuntza sistema sinpleak erabili zituzten, pilaketan eta **arkitektura arkitrabatuan** oinarrituta. Formak ere nahiko sinpleak dira. ETC-entziklopedia

---

arkitrabe *iz* eraikuntza baten goialdea osatzen duten hiru zatietatik behekoa, zutabeen kapitelen gainean bermatzen dena.

Arkitrabe bakoitzaren gainean bi triglifo eta bi metopa jarri beharko dira: angeluetakoetan, gainera, triglifo-erdi baten espazioa jarriko da gehiago. Santiago Iruretagoiena

Pertsiarrek estatua asko jarri zituzten beren **arkitrabe** eta apaingarriei eusten. Santiago Iruretagoiena

Patrasen ere, adreiluzkoak dira Jupiter eta Herkulesen tenpluan dauden gelak; tenpluaren inguruan, berriz, harrizkoak dira **arkitrabeak** eta kolomak. Santiago Iruretagoiena

Arkitrabeak, frisoak eta erlaitzak kolomen proportzioen arabera egingo dira. Santiago Iruretagoiena

Zutabeak, alde batetik, badu halako erlazioa berak heltzen duen **arkitrabearekin**; espazioan agertzen diren bi unitateren kokaerak erlazio sintagmatikoan pentsarazten digu; beste alde batetik, zutabea doriar ordenatakoa baldin bada, beste ordenekiko erkaketa ekartzen du gogora. Isabel Arrigain

Arkitrabearen gainean triglifoak jarri behar dira beren metopekin; modulu eta erdiko altuera emango zaie, eta modulu bateko zabalera, frontean. Santiago Iruretagoiena

Gurpilak egin zituen hamabi oin ingurukoak, eta **arkitrabeen** buruak gurpilen erdian finkatu zituen. Santiago Iruretagoiena

Era berean, **arkitrabe** doriarrak izanik, erlaitzetan dentikuluak zizelkatuko balira edo kapitel eta koloma bolutadunetan eta **arkitrabe** (kapitel) joniarren gainean triglifoak egingo balira, estilo baten propietateak beste batera aldatuz alegia, horrek ere kalte egingo lioke itxurari, ez bailitzake bat etorriko ohiturak lehendik ezarrita duen ordenarekin. Santiago Iruretagoiena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arkitrabearen gainean (4)

---

arkitu ik **aurkitu**.

---

arko ik **arku**.

---

arkondara ik **alkandora**.

---

arkonte *iz* Antzinako Greziako magistratua.

Atenastik zetorren; herriak aintzat hartutako **arkontea** izan zen han hamar urtez: Demetrios Falerokoa. Jon Muñoz

---

arkorotz *iz* ardi gorotza. ik **arkin**.

Nahiz eta aise gertuago sumatzen eta pairatzen ditugun, "orain eta hemen" ezinago zabal eta luzean, artaldearen **arkorotz** eta pixurrinak poeten oihartzunak baino. Jose Angel Irigaray

---

arktiar ik **artiko**.

---

arku *(ETCn **9.909** agerraldi; orobat **arko** ETC **37** agerraldi)* **1** *iz* bi zutaberen arteko hutsunea estaltzeko eraikuntza, zinkunferentzia erdi baten eitea duena; zinkunferentzia erdi eta laurden baten eitea duen gauza.

Zubi erromanikoa, bere sei **arkuekin**, ederretsi gabe ezin da pasatu. Piarres Aintziart

Bi **arku**, harroinaren bi alboetan xilatuak bezala, hormaren harri ederra, teilatuaren harri lauzak: duela lau urte berritua den eraikin gotiko hau xirristaren freskurari dagokio. Piarres Aintziart

Baldosak, gainean inolako ertzik utzi gabe eta horietako bi barren tartean eusteko moduan jarri behar dira, barra edo **arku** horien gainean; horrela, gangaren pisu guztia burdinen gainean bermatuta geratuko da. Santiago Iruretagoiena

Hogei **arku** dituen zubi alimaleak, Caminoko luzeenetarik bat omen, Villarenten sarrarazi nau. Piarres Aintziart

Eremu horretan hamahiru gela egingo dira **arku** moduan banatuta, beren artean hamabi tarte berdin utziz. Santiago Iruretagoiena

Pilare gainean egingo diren eta **arkuak** dobeletako junturen zatiketak zentrora begira jarriz bukatuko diren eraikinetan, muturretako pilareak tokiz zabalagoak egin behar dira. Santiago Iruretagoiena

Etxea eraiki zen urtea ikusten da atearen **arkuan** dagoen armarrian. Koro Navarro

Bere buruan, pieza bakoitza bere tokian jarri eta bere aitaren aitak ate gaineko **arkuan** osatutako ggizena etorri zitzaion ezpainetara: [...]. Bernardo Atxaga

Ni Buenos Airesen barrena ibiltzen naiz eta neure astia hartzen dut, dagoeneko mekanikoki apika, bebarru baten **arkuari** eta sarrerako langari begira geratzeko. Juan Garzia

Alta, hainbeste baditut ja ikusiak, baina hau Hemeretzi **arku**, urean biga naski eta beste guziak lehorrean zubiak orduan zubide bat dirudi eta platanondo gaitz batzuen itzalak **arkuak** ferekatzen ditu. Piarres Aintziart

Aurrean duen palazzoko leihoetako **arkuek** piztu dute Bogarderen begiradaren arreta. Anjel Lertxundi

Segidan, Oja ibaiaren hogoita lau **arkuek** jasaten duten zubia iragan dut. Piarres Aintziart

Itzulerako bezperaren eguerdian, Champs Elysées-en zehar Garaipenaren **Arkurantz** gindoazela. Ramon Saizarbitoria

Uki daitekeen arkitektura trinkoa, itxuraz luzatzen duen zutabe eta **arkuzko** arkitektura baten erdi-erdian zabalik dagoen zeru margotu batean kokaturik dagoelako. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nire zain zegoen zerbitzari batek hartu zidan zaldia, eta ezkaratzeko **arku** gotikoa gurutzatu nuen. Koro Navarro

New Yorkeko zubirik zinematografikoena izateaz gain, ederrena ere bada Brooklyngoa, bere harrizko pilareekin eta bere **arku** gotikoekin. Harkaitz Cano

Begien aurrean kareharrizko **arku** ikaragarri bat agertu zen, lurretik hogeita hamar metrora igotzen zena, alboetako aldapetan sendo oinarrituta. Joanes Urkixo

Urrundik, merkatu nagusiak, zeharka ikusita, txunditu egiten zuen: **arku** eskerga bat, ate zulo garai handi bat, zabaltzen zen lehenbizi. Karlos Zabala

Nire zain zegoen zerbitzari batek hartu zidan zaldia, eta ezkaratzeko **arku** gotikoa gurutzatu nuen. Koro Navarro

Ate batzuetan, jatorrizko **arku** zorrotzaren azpian, zertarako ez dakigula, zirkulu erdiko **arku** bat egin zen gero. Koro Navarro

Etxaurreko **arku** zabala ez da aldatu. Txillardegi

Ezkerretan **arku** txapala dago, handik ur hotza darion iturburuaren begirale xume. Txillardegi

Era askotariko armak zekartzaten; aiztoak, segak, igitaiak, akuilu zorroztuak, baita **arku** bakan batzuk ere han-hemenka. Joanes Urkixo

Ohartu gabe iragan dut Ages eta Atapuerca herrien arteko **arku** bakaneko zubia, San Juan de Ortega herriak erromesentzat eraikia. Piarres Aintziart

Une oro huntzaz estalitako **arku** bakarreko zubiak, iragaten dituen idi orgaren baten pean kulunka. Koldo Izagirre

Egiarteko eliza erromaniko ederra ere bai (**arku** laukoitza eta zutarri karratuetakoa, une hartan batera Allotzen eta Lakarren parrokia bikuna), pausagune atsegin epelsko. Txillardegi

Errepideak bi **arku** ederren azpitik segitzen du eta ezker dago, eskupean bezala, ibiltariaren zai, **arku** doble bat xoragarria, harrirudiak denborak erdi janik badira ere. Piarres Aintziart

Burdin langatik patio bat ikusten zen, andaluziar estilokoa, harrizko **arku** eta zutabeekin. Josu Zabaleta

Erroma harrizko **arku** zabaletan eraiki zuten. Lopez de Arana

Gangak adreiluzko zerrenda zuri eta gorriak zeuzkan, eta haren **arku** beheratuek burdinurtuzko nerbioekin bat egiten zuten, zutabetxo batzuetan oinarri harturik. Karlos Zabala

Hiri-atariko pasabidean, ezkerretan, eta Tito jaunaren etxe txukunerainoko tartean, hirirako sargunean alegia, **arku** txapal zabala gurutzatu dut. Txillardegi

Harrizko **arku** zaharra. Xabier Mendiguren Elizegi

Zurezko **arku** eta sokatxoarekin horniturikо ume mukizuak zaldun armatuari mehatxuka! Agustin Otsoa

Teilatuaren gainean, azkenik, osotara herdoildutako burdinazko **arku** batetik zintzilik, ezkila zahar bat ikusi dut. Txillardegi

Urrunago, betoizko **arku** bat erakutsi zien. Ramuntxo Etxeberri

Haien parean, beste zirkulu estuago bat osatuz, harrizko zutabe motz astunek erdi-puntuko **arkuei** eusten zieten, aretoari monasterio erromaniko baten itxura emanez.

Alberto Ladron Arana

Leihoak zabalak ziren eta erdi-puntuko **arkuz** biribilduak. Karlos Zabala

Arku dotore apainduen azpitik. Patziku Perurena

Lurpean egindako **arku** erdiko hodi luze bat baizik ez baitzen taberna hura. Hasier Etxeberria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

IRIGOIN margolaria zuen bisitaren beha izanen da **arku** azpi hortan agorrilaren 17 a arte. Herria

Katedraletako kupulen edo zubietako **arku** -begien kasuan. Juan Garzia

Sartzean ez naiz ohartu neoizko letrero bat dagoela ate gainean, **arku** gaina eginez: [...]. Joseba Sarrionandia

Moilan, hozkailu biltegi berriak, zubi-garabiak, **arku** -garabiak. Urtzi Urrutikoeetxea

Arku -dobelen bitartez kargak habeetatik edo dintel-buruetatik kanpora eramaten direnean, hasteko, egurra, kargaz arindu delako, ez da gilbortuko. Santiago Iruretagoiena

Gosaldu ondoren, Harry atzeko patiora irteten zen, bere makila magikoa atera, zakarrontziaren gainean ezkerretik hasita hirugarren adreiluari kolpetxoak eman, eta zain geratzen zen Diagon kalexkara sartzeko **arku** -bidea horman zabaldu arte. Iñaki Mendiguren

Gero, **arku** tankera duen iceberg bat kausituko duzue. aurrean distiratsu argituriko gela bat ikusi zuten, goian sabaia **arku** -itxuran zuena. Joseba Sarrionandia

Etxea trabeska dago kokatua karrikan, Chenonceaux-eko gaztelua bezala Cher-en gainean, eta haren azpitik pasatzen da karrika zubi luzeko **arku** moduko bati esker, estua, bobedatua eta iluna. Koldo Izagirre

Herri zaharraren harrizko gerria ate **arku** -zorrotzen bidez zabaltzen da hainbat lekutan; beste batzuetan irregulartasunez hausten da, egunetik egunera handitzen ikusten den zulo bat utziz. Koro Navarro

· Ikastaro bat egin zuen **arku** -tiroaren nondik norakoez jabetzeko. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goian, Étoile-ko Garaipen-**Arkua** ; behean, berriz, Concordeko plaza. Jon Muñoz

Garaipen **arkuaren** azpian gelditu nintzen, ibilbide hura, ibilbide luze, zoragarri, izarrez betea, suzko bi lerroren artean Paris aldera nola zihoan ikusteko. Josu Zabaleta

Hiru zaldi agertu ziren gurdi-atean, garaipen-**arkuetan** zizelatu edo margotzen dituztenen berdin-berdinak: mutur bat eskuinerantz, mutur bat ezkerrerantz, mutur bat aurrerantz. Jose Morales

Hiru urte hartan ikusten ez nuen Hernani kalean, bi garaitzapen-**arku** eraiki omen zituzten beltzek, dotore oso, 14 metro gora. Txillardegi

Zirkunferentzia **arku** perfektua marrazten dute bolantea alde batera eta bestera jira egitean, ardatz baten inguruan bueltaka ari baitira. Berria - Kirola

5 irud/hed

Ruche jauna onez onean ulertzen ari zen trigonometrian ere kurbaren eta zuzenaren arteko erlazioan zegoela koska; zirkuluetako **arkuen** eta haiei eusten dieten korden arteko erlazioan, alegia. Jon Muñoz

-Horrelaxe ebakiko dizugu -esan zion gaixoari, hatzarekin kopetaren gainaldetik **arku** bat marraztuz. Imanol Zurutuza

Bekainek bi **arku** marrazten zizkioten, haiek ere neurriz gain perfektuak, geometriako legeen arabera eginak iduri. Matías Múgica

Han alertzeek **arku** bat marrazten zuten, bide nagusiak haren sokarena egiten zuela. Karlos Zabala

Beleak bakarrik zebiltzan, taldeka, zeruan **arku** luzeak eginez. Josu Zabaleta

Arku dotoreko bekainak zituen, aurpegi leun xorrotxa, mugimendu bizi baina zehatzak. Juan Garzia

Izan ere, bertan **Arku** Atlantikoaren Garraio eta Logistikaren Nazioarteko Foroa egiten ari direla salatu nahi dute. Berria - Euskal Herria

Halako argitasun fosforeszente bat zerien laino itxi haietako batzuei, hirurogei-laurogei graduko **arkuak** osatuz. Karlos Zabala

Oinetako beixetako baten zola fin eta labainkorraren **arkuan** , papertxo zuri luzanga bat zuen itsatsita. Mirentxu Larrañaga

Mikrohistoria bat, lanbide baten eta haren porrot, garaipen eta miseriena, bakoitzak bere karreraren **arkua** amaierara hurbiltzen sentitzen duen eta arteak luze izateari uzten dion tenore horretan kontatu gogo duenez. Juan Garzia

Bizkarrezurraren malformazioa da, orno-**arkuen** bi erdiak ez direlako behar bezala lotzen. Berria - Gaiak

Bizkarrezurrak lotzen ditu bi **arkuok** , eta bizkarrezurretik zintzilik edo hari atxikiriko kaxa torazikoaren barruan daude gorputzaren organo eta ehun gehienak. Irene Aldasoro

6 zurezko haga mehea, bi buruak zurdazko hariez lotuak dituena, biolina eta kideko instrumentuak jotzeko erabiltzen dena.

Beraren aitari ematen hizkion partiturak kopiatzeko; eta eskuak ia perlesiak joak zituen agure hura, biolina eta **arkua** hartzeko eta musika jo edo hari nota garbi eta nobleak aterarazteko gauza ez izan arren, oraindik ere partiturak kopiatzeko moduko eskuak baitzituen. Xabier Olarra

Gogoeta honetan zebilela, bat-batean aingeru bat agertu zitzaion distira bizitan, ezkerreko eskuan biola zuelarik eta eskuinekoan **arkua** . Askoren artean

Hori pentsatu zuen da Ruak, hitzak irristatzen zituela itsuak, biolinaren **arkua** hariak jotzean irristatzen den bezala. Felipe Juaristi

Gero eta arinago ibili ziren itsuaren hatzak soken gainean, gero eta arinago juduaren hatzak txirula zuloak itxi eta ireki, gero eta arinago itsuaren **arkua** hariak joka, gero eta arinago juduaren arnasa hauspoak airez libratu nahian. Felipe Juaristi

Arkua eta biolina lurrean utzi zituen, aulkiaren aurka biak. Felipe Juaristi

Ijitoek elkarri begiratu diote, biolin **arkuak** behera. Felipe Juaristi

7 haga makotu batez eratutako arma, muturretik muturrera duen soka batez geziak eta tragazak jaurtikitzeko erabiltzen dena. ik **uztai 9**.

Hagin-makilaz uztai eta **arkuak** egiten greziar gerrariengandik ikasi zuten erromatarrek. Pello Zabala

Geziburua zorroztarriaz zorroztu, ziria hortzen artean sakatuz zuzendu, gero gezi hori **arkuan** ipini eta arteztasuna frogatzen zuen. Joseba Sarrionandia

Eskueran **arkurik** edo baleztarik ez bazen, ehiztariak hartzaren besoetara, oreinaren adarretara edota basurdearen hortzetara hurbildu beharra zeukan. Jon Alonso

Beren besoek ozta-ozta altxatzen dutela ezpata edo tenkatzen dutela **arkuaren** soka sentitzen dute, beren begi lausoek distantziak tronpatzen dituzte, galera da hor datorrena, heriotza bera baino latzagoa. Jon Alonso

Han hautsi ditu gudu-armak: **arkuaren** gezi, babeski eta ezpatak. Elizen arteko biblia

Indiar horiak sartu baitzitzaizkigun, beren **arkuekin** eta beren fletxekin, baita zazpi gizon zuri ere, beren arkabuzekin. Joan Mari Irigoien

Baziren kirgizak, begitartea laua zutenak, kalmukak bezala, sare-kotaz estalirik, batzuek lantza, **arkua** eta gezi asiarrak aldean, eta beste batzuek sablea, metxako fusila eta txakana, gider laburreko aizkora txikia, zauri hilgarriak baino egiten ez dituena. Karlos Zabala

Gero, megaroi aldera abiatu zen, **arkua** eta geziak zeramatzala. Juan Kruz Igerabide

Hona non etorri diren asiriarrak indarrean, beren zaldi eta zaldunengatik harro, beren oinezkoen indarrarengatik hanpurutsu, eta konfiantza beren babeski, lantza, **arku** eta habaileten jarririk. Elizen arteko biblia

Arku honek gizon asko hilko du; hala ere, hobe hiltzea, aspaldidanik itxaroten ari garena lortu gabe alde egitea baino.Ez dut uste erraz tenkatuko denik **arku** hori, guztion artean ez baitago Ulises adinakorik. Juan Kruz Igerabide

Trebeetan trebe nauzue **arkua** tenkatu eta geziak jaurtitzen. Juan Kruz Igerabide

Ostikoka nahiko nuke egin, garrasi, ama indarrez astindu, negar egin, ez dakit zer gehiago, egunero-egunero **arku** tinkatu batez jaurtikitako geziek bezala zulatzen nauten hitz gaizto eta iseka-barre guztiengatik. Josu Zabaleta

Arku biziki tenkatutik jaurtiriko geziaren etsenplua aurkezten zitzaienean, honela erantzuten zuten: [...]. Xabier Kintana

Benjamingoen buruzagia gudari ausart bat zen, Elias, **arku** eta babeskiz armaturiko berrehun mila gizonen buru. Elizen arteko biblia

Egia da **arkuek** eta baleztek egiazko gezi, birote eta birotoi jasa botatzen dutela almenen kontra, guardiako mairuak bertatik atzera eginarazteko. Jon Alonso

Ogia erakutsi zuen gezirik gabeko **arku** bat edo ezkutu bat bailitzan. Harkaitz Cano

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eurimakori eta Antinoori hitz egin nahi diet batez ere, **arku** -lehia uzteko esan baitu Antinook. Juan Kruz Igerabide

Zazpi hilabete eta erdiko dago haurdun Claudia Pfohl, Alemaniako **arku** tiraketako kidea. Berria - Kirola

Arku -tiroa gustuko dutenek aukera bikaina dute datorren bi asteburuetan, Tolosaldean. Berria - Kirola

Arku -tiroko txapelduna. Joxan Elosegi

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hainbat mutil gaztez gain, ehun bat hobbit baino gehiago bildu zen aizkorak, mailu astunak, labana luzeak eta makila mardulak eskuetan hartuta, eta batzuek ehiza **arkuak** ere bazeramatzaten. Agustin Otsoa

10 geometrian, zirkunferentzia zatia.

Karratuaren erdian jarri konpasaren zentroa eta zirkulu bat egin karratuaren angeluak ukituko dituena; doi-doi zirkunferentziaren eta karratuaren aldearen tartean geratzen den **arkuaren** tamainako ildaxka zizelkatuko da. Santiago Iruretagoiena

Zirkunferentzia **arku** perfektua marrazten dute bolantea alde batera eta bestera jira egitean, ardatz baten inguruan bueltaka ari baitira. Berria - Kirola

· *irud/hed* Haren begiak urdin ilunak ziren, begikera zuzen argi tolesgabekoak, dirdizka beti betileen **arkuaren** azpian. Karlos Zabala

11 bi elektrodoren artean gertatzen den deskarga elektriko distiratsua, eskuarki *arku voltaiko* esaten zaiona.

Milioika errublo emanda ere doi-doia ordainduko zenuen haien balioa, eta, jaurtitzen zuten distira biziari begira, uste izatekoa zen argindarren batek eguzki printzez egindako **arku** voltaiko bana pizten ziela barrualdean. Karlos Zabala

Errezeletan oraindik **arku** voltaikozko lanpara baten erlantza ageri zen, tarteka-marteka keinulari. Joxe Austin Arrieta

· Proiekzio lanparen intentsitatea jaso zenean (**arku** -lanparak erabiltzen hasi zirenean batez ere), 24 Hz-z goiti igo zen maiztasun kritikoa. Josu Zabaleta

12 ***arku apaldu***

Patio horretatik eskailera zabal bat abiatzen zen, kanpoko aldetik, harri zurizkoa, eta lehenengo solairura iritsita, **arku apaldu** betetik igaroz, eraikinean sartzen zen. Josu Zabaleta

13 ***arku beheratu***

Gangak adreiluzko zerrenda zuri eta gorriak zeuzkan, eta haren **arku beheratuek** burdinurtuzko nerbioekin bat egiten zuten, zutabetxo batzuetan oinarri harturik. Karlos Zabala

14 ***arku bidezko soldadura*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Arku bidezko soldadura edota soldadura elektrogenoa, metal bat beste metal batekin arku elektriko baten bidez soldatzeko prozesuari deritzaio. Teknika honi fusio bidezko soldadura deritzaio. ETC-entziklopedia

15 ***arku bolkaniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **43** agerraldi)*

Arku bolkanikoa subdukzioaren ondorioz plaka zamalkatzailean eratutako bolkanen sistema lerrokatua da. ETC-entziklopedia

Noski, sedimentu hauetatik batzuk **arku bolkanikotik** datoz eta beraz, urteak pasa ahala, deformazio ikaragarria pairatzen dute. ETC-entziklopedia

Lurralde horietan gehi orogenoetan, **arku bolkanikoetan** eta estentsioaren eraginpean dauden lurraldeetan lortutako lurrazal kontinentalaren lodierak 2.8. irudiko histograman islatu dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

16 ***arku dantza*** *(corpusean ez dago; ETCn **60** agerraldi)*

Ia arnasarik hartzeko asti barik lotu zituzten aurreskua, **arku-dantza** , sagar-dantza, launakoa, agintariena... ETC-prentsa

Ezpata-dantza ez, **arku-dantza** izango da Ezpalak nazioarteko jaialdiaren gai nagusia aurten. ETC-prentsa

Ezpata-dantza egin dute mutilek, eta **arku-dantza** neskek. ETC-prentsa

Lehen neska-dantza izan zen, berezkoa, ordura arte nesken makil, zinta edo **arku dantzak** mutilenak baitziren. ETC-prentsa

Ezpata dantzak, makil dantzak, **arku dantzak** eta dantza-jauziak landu zituzten aurreko aldietan, besteak beste. ETC-prentsa

Ondoren, mutilek ezpata eta makil dantza egin zituzten, eta jarraian nesken txanda iritsi zen: **arku dantza** egin zuten lehenik, eta soka dantza gero. ETC-prentsa

Arku-dantza mota hau oso ohikoa da Kantabrian; Lanestosan, goizez herriko kaleetatik ibiltzen den prozesioaren aurretik dantzatzen dute etengabe, eta behin kalejira amaituta, Plaza Berrian. ETC-prentsa

Umeek egingo dute lehenengo dantza-saioa: **arku-dantza** , txankarrankoa, esku-dantza, zinta-dantza eta iribas egingo dituzte txikienek, guztiak ere mozorrotuta. ETC-prentsa

Antzezpen hura ekitaldi hartarako berreskuratu ziren beste bi dantzagaz batera egin zuten: **arku dantza** eta Domingillo. ETC-prentsa

Ordura arte sagar-dantza, **arku-dantza** eta zinta-dantzak gizonezkoek ere dantzatu arren (eta zenbaitetan gizonezkoek bakarrik), genero-marka femeninoz etiketatu ondoren gizonen errepertoriotik desagertu ziren pixkanaka. ETC-entziklopedia

17 ***arku elektriko***

Berdez inguratutako argi arrosa eta morea ematen zuen **arku elektriko** baten azpian, laukiekiko jantzia zeukan gizona bi neskarekin gurutzatu zen. Lopez de Arana

Gauak **arku elektrikoek** isuritako esne distiratsua birrintzen zuen, bai eta etxe-bloke ilunak gogor estutu ere, oin-hotsen durundiaz betetako kaleak argi gorriz, horiz eta berdez tantaka blaitu arte. Lopez de Arana

18 ***arku elektrikozko labe*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Karga trifasiko adibide bat altzairugintzan eta mea errefinatzeko erabiltzen den **arku elektrikozko labea** da. ETC-entziklopedia

19 ***arku erdizirkular*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Erdi puntuko arkua edo **arku erdizirkularra** zirkunferentzia erdi baten itxura duen arkua da. Arkitekturan erabiltzen da, eta Kanoi-gangaren elementu nagusia da. ETC-entziklopedia

20 ***arku erreflexu*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Erreflexu bat burutzeko elementu eta mekanismo batzuk behar dira, **arku erreflexu** deritzona osatzen dutenak. ETC-entziklopedia

Hipotoniak adierazten du lesioa periferikoa (**arku erreflexu** miotatikoa), zerebelosoa edo piramidal zorrotza izan daitekeela. ETC-zientzia, zuzenbidea

21 ***arku eskartzano*** *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Arku apaldua edo arku beheratua, batzuetan gaztelaniaren eraginez " **arku eskartzanoa** ", arku simetriko mota bat da, zirkulu-sektore profila eta zentroa inpostaren azpitik dituena. ETC-entziklopedia

Beheko aldean bi **arku eskartzano** ditu eta horiek formatzen dute ataria. ETC-entziklopedia

Koruak nabe nagusiko azken tartea hartzen du; **arku eskartzano** baten gainean dago. ETC-entziklopedia

Elizataria bi hormabularren artean dago eta ganga batek estaltzen du. Sarrera bikoitza dauka; bi **arku eskartzano** dauzka. ETC-entziklopedia

22 ***arku fajoi*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Estalkien sistemak lau ertz-ganga ditu, eta horien pisua **arku fajoi** sendoek eusten dute. Izkinetan agertzen diren harlanduzko kateak nabarmentzen dira. ETC-entziklopedia

Eliza nabe bakarrekoa da, **arku fajoi** eta atzeko beiradun kanoi erdiko ganga batez estalia. ETC-entziklopedia

23 ***arku faltsu*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Arku izuna, batzuetan **arku faltsua** , arkuaren antzeko eraikuntza metodo bat da; baina benetako puntu erdiko arku baten kasuan ez bezala, alboetatik, mentsulak erdigunera luzatuz egiten den teknika da. ETC-entziklopedia

24 ***arku festoidun*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arku festoiduna arkuaren intradosean apaingarri modura hainbat festoi dituena da. Batez ere arkitektura gotikoetako ateetan erabiltzen zen, baina estilo arkitektonikoaren arabera, **arku festoiduna** erdi puntukoa, zorrotza, ferra arkua edo beste mota batekoa izan daiteke. ETC-entziklopedia

25 *arku formero* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Arku formeroa arkitektura elementu kurbatu bat da, nabe edo habearte bateko luzerako ardatzarekiko paralelo jarria. Bere funtzioa egitura bateko goiko aldeko hormak eustea da. ETC-entziklopedia

26 *arku goratu* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

"**Arku goratua**": Geziaren altuera argiaren erdia baino handiagoa bada. ETC-entziklopedia

27 *arku gotiko*

Absolut vodka labelak ere argazkimuntaia bat egin zuen bere garaian, Brooklyngo zubiko **arku gotikoak** beren botilaren itxuran eraldatuz, ABSOLUT BROOKLYN lemapean. Harkaitz Cano

Zutabe bikainekin, **arku gotikoekin** eta Karlos III.a Prestuaren eta bere emazte Trastamarako Leonorren estatuekin gozatu zuten bereziki, baina lehendik zegoen katedral erromanikoaren arrastoak ere ikusteko parada izan zuten taldekideek. Berria - Euskal Herria

Baina batzuetan, nasan zehar ibiltzen zenean, haizeak, jotzean, kalparra harrotu eta bere ileen **arku gotiko** hura altxatzen zion. Fernando Rey

Nire zain zegoen zerbitzari batek hartu zidan zaldia, eta ezkaratzeko **arku gotikoa** gurutzatu nuen. Koro Navarro

28 *arku itsu* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Nahiz eta XX. mendean eginiko mausoleoa izan, artisauek antzinako artearen ezaugarriak jarri zizkioten, hala nola, erdi puntuko **arku itsuak** egin zituzten. ETC-prentsa

Beheko lauak oinplanoa laukia dute eta goikoak oktogonala, okulu eta **arku itsuz** hornitua. ETC-entziklopedia

Beheko aldea XIII. mendekoa da eta altuera osoaren bi heren hartzen ditu, bi **arku itsu** zorrotz ditu eta horien gainean bao zorrotz txiki bi. ETC-entziklopedia

"Deskarga-arkua": Ateburu, leihoburu edota beste arku baten gainean kokatzen den **arku itsua**, kargen zati bat eusteko, azpiko elementuak jasan behar dituen kargak gutxituz. ETC-entziklopedia

Arku itsuez banatutako horma batzuk kontserbatu dira. ETC-entziklopedia

Fatxadak **arku-itsuen** bi lerro ditu eta bi kanpandorre Normandiar normando estilokoak, leihoak mainelezkoak (Ojiba-arku ojiba bikoitzeko) dira eta dorreek bi pinakuluetan bukatzen dute, XV. mendean gehituak. ETC-entziklopedia

Ate-aitzineko isurketa erdi-puntuko arku bati esker egiten zen, baina egun **arku itsua** da. ETC-entziklopedia

Buretako kondeen jauregia: Adreiluzko dorrea da eta lau **arku itsu** ditu alde banatan. ETC-entziklopedia

29 *arku izun* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Arku izuna, batzuetan arku faltsua, arkuaren antzeko eraikuntza metodo bat da; baina benetako puntu erdiko arku baten kasuan ez bezala, alboetatik, mentsulak erdigunera luzatuz egiten den teknika da. ETC-entziklopedia

Arku izun batek, luzerako ardatzean proiektatzean, ganga izun bat ematen du. **Arku izuna** bezala, hurbilduz doazen harlandu edo harlangaitz ilaraz osatua dago, eta ezdobelaz. ETC-entziklopedia

30 *arku kapaz* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arku kapaza. ETC-entziklopedia

31 *arku karpanel* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Ataripe hori hareharrizko lauza irregularrez dago estalirik, eta **arku karpanel** dotore batetik sartzen da bertara. ETC-entziklopedia

Arku karpanel zentral handia dauka, eta horren gainean harrizko balkoi jarraitu handi bat lehen solairuan eta armarri ederra oin nagusiaren eta ganbararen artean, ardatz zentrala nabarmentzen dutela. ETC-entziklopedia

Koru altu eta sakonak **arku karpanel** itxi eta burdin-hesiduna du oinarri, eta nabearen erdialderaino aurreratzen da. ETC-entziklopedia

Arku karpanel horren gainean mentsula pare batek tejaroz bati eusten zioten. ETC-entziklopedia

Asteasu eta Elbarrena arteko errepidera ematen duen iparraldeko aldean, aipatutako karrerarako sarrera nabarmentzen da **arku karpanel** baten azpitik hau ere. ETC-entziklopedia

32 *arku konopial* *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Azken honek, bere atarian arku bikoitza eta **arku konopialeko** leiho bikiak erakusten dizkigu, erreformak jasan aurreko aztarna gisa. ETC-prentsa

Aipagarria da, bestalde, Iturgaitzaga baserriaren harri zizelkatuko leihoburuak, **arku konopialen** forma dutenak. ETC-prentsa

Erretaularen atzean dauden paramentuek **arku konopial** beheratuak dituzte apaingarri gisa. ETC-entziklopedia

Azkenengo oina ondoen argitua da eta **arku konopial** bat nabarmentzen da fatxadan. ETC-entziklopedia

33 *arku magmatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Jarduera magmatikoak eragindakoa, kako forma du eta hobi ozeanikoarekiko paralelo dago. Hau, **arku magmatikoa** bezala ezagutzen da. Plaka ozeaniko batean sortutako **arku magmatikoa**, arku uharte irla bat sortuko du, eta plaka kontinentalean sortutako hau, berriz, arku bolkaniko kontinentala. ETC-entziklopedia

Lurrazal ozeanikoaren gainean garraiatutako sedimentu pelagikoak fosaraino garraiatuak direnean edo **arku magmatikoan** jatorria dituzten turbiditak bertan pilatzean, zenbait bideri jarraitzeko aukera izango dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hasieran, lodiera izugarri hauek azaltzeko **arku magmatikoaren** jarduera bortitzari lotutako sakoneko magma-bolumen kopuru handien pilaketa iradoki zen.. ETC-entziklopedia

Arro honek eragiten dituen subsidentzia mekanismo nagusienak **arku magmatikoaren** hoztea, akrezioprismako dentsitate handiko unitateak ezartzea (pisuaren irabaztearekin) eta zama sedimentarioa dira. ETC-entziklopedia

Angelu mota honek **arku magmatikoaren** lodiera sortzen du, Ande zentraletan gertatzen den bezala eta altiplanoak sortzera iristen da. ETC-entziklopedia

34 *arku musikal* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Forma goiztiar bat **arku musikala** izan zen. Makila malgu bat zen, punta batetik bestera hari bat tenkaturik zuena. ETC-entziklopedia

35 *arku-segundo* *(corpusean ez dago; ETCn **61** agerraldi)*

Izan ere, urtetik urtera **arku-segundo** batzuk baino ez dira higituko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi **arku-segundo** (latitudean) bider hiru **arku-segundoko** (longitudean) tartea dute DEM datuek. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainerako planeta ezagunen efektu perturbatzaileak kontuan hartu ondoren ere, bada oraindik gehigarritxo bat Merkurioren mugimenduan, mendeko 43 **arku-segundoko** oszilazioa dakarrena planetaren orbita-elipsearen ardatzean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta teoriaren arteko konparaketaren emaitzek bakarrik mende bakoitzeko 43 **arku-segundoko** desadostasuna utzi zuten prezesio-abiaduraren balioari dagokionez (behatutakoa, guztira, mende bakoitzeko 5.600 **arku-segundo** ingurukoa zelarik). ETC-zientzia, zuzenbidea

Hiru **arku-segundoko** tartea dago bien artean, Lurretik ikusita. ETC-entziklopedia

Arae, izar bitarra, supererraldoi urdin bero batez eta sekuentzia nagusiko izar zuri batez osatua; batetik bestera **18 arku-segundo** daude, Lurretik ikusita. ETC-entziklopedia

Delta Cepheik hurrenez hurren 7 eta 13ko magnitudeko bi izar ditu lagun, horietako lehenarekin (41 **arku segundora** dagoena) izar bitar bat osatzen duela uste delarik. ETC-entziklopedia

36 *arku superziliar* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Beste antropologo batek, Neanderthalgo hezurduraren **arku superziliar** handiarekin harrituta, iradoki zuen bekozko zimurrarekin ibili zela denbora luzez, gaizki sendatutako besaurreko haustura batek eragindako minaren ondorioz, eta horregatik zuela horrela. ETC-literatura, saiakera

37 *arku tertzelete* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Habearteak, berriz, bi zati ditu, eta burualde zuzena. XVI. mendeko **arku tertzelete** eta kopatuko gangek estaltzen dute, zutabe erdietan zurkaiztuta. ETC-entziklopedia

38 *arku tiraketa*

Zazpi hilabete eta erdiko dago haurdun Claudia Pfohl, Alemaniako **arku tiraketako** kidea. Berria - Kirola

39 *arku-tiro*

Arku-tiroa gustuko dutenek aukera bikaina dute datorren bi asteburuetan, Tolosaldean. Berria - Kirola

Gainera, ikastaro bat egin zuen **arku-tiroaren** nondik norakoez jabetzeko. Berria - Kultura

-Arku-tiroko txapelduna. Joxan Elosegi

40 *arku toral* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Arku torala egiturazko elementu bat da, kupuladun tenplu baten ardatz nagusiaren ahoa eratzen duen arkua hain zuzen ere, eta hedaduraz, gurutzadurako lau arkuetako bakoitza, eta, era berean, ardatz nagusi horrekiko elkarzut diren arku guztiak. ETC-entziklopedia

Burualdeko **arku torala** bi zutabe-erditan bermatzen da. ETC-entziklopedia

41 *arku voltaiko* *(orobat **arku boltaiko**)* potentzial diferentzia bat ezartzen zaien bi elektrodoren artean sortzen den deskarga.

Errezeletan oraindik arku **voltaikozko** lanpara baten erlantza ageri zen, tarteka-marteka keinulari. Joxe Austin Arrieta

Arnasestuka korrika abiatu ziren bata bestetik distantzia berberera zeuden kaleko arku **boltaiko** lasaigarrietarantz. Lopez de Arana

Jaurtitzen zuten distira biziari begira, uste izatekoa zen argindarren batek eguzki printzez egindako arku **voltaiko** bana pizten ziela barrualdean. Karlos Zabala

42 *arku zirkunhorizontal* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arku zirkunhorizontala (ingelesez CHA siglekin laburtua), suzko ostadar bezala ere ezagutua, itxuraz, ostadar baten antzeko halo edo fenomeno optiko bat da, baina, ostadarretik, zirru hodeietan dauden izotz kristaletan argia errefraktatzen delako ezberdintzen da. ETC-entziklopedia

43 *arku zorrotz*

Ate batzuetan, jatorrizko **arku zorrotzaren** azpian, zertarako ez dakigula, zirkulu erdiko arku bat egin zen gero. Koro Navarro

Caro Barojak 1982. urtean egindako argazkiak eta azken garaikoak parekatuz gero, ikus daiteke **arku zorrotzak**, leiho gotikoak eta harrizko armarri zahar bat desagertu zirela. Edurne Elizondo

44 *arku zuzen* *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

Arku zuzena kurbatura gabeko arku mota bat da, beraz, ateburu edo arkitrabe baten itxura du, eta, hortaz, arku beheratuena edo arku apalduena da. ETC-entziklopedia

Arku zuzen bat egiteko zinbria gisa erabiltzen den ohola, pittin bat gorantz sabeldua, arkua ondo finkatu ahal izateko. ETC-zientzia, zuzenbidea

45 *arkuzko soldadura* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Gas geldoa askatu eta arkuaren inguruan babes-geruza bat sortzen duen metalezko elektrodo urkor bat baliatzen duen **arkuzko soldadura** mota. ETC-zientzia, zuzenbidea

46 *diafragma arku* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arku diafragmatikoa edo **diafragma-arkua** espazio baten zeharkako norabidean jarritako arku mota bat da, beraz, **diafragma arkuak** espazioaren luzerako norabidean jarraian jarriz teilatua eraiki ahal izango da, eta sistema honi esker, estalkiak sortzen dituen bultzadak eragin txikiagoa izango dute hormetan. ETC-entziklopedia

47 *erdi-puntuko arku*

Leihoak zabalak ziren eta **erdi-puntuko arkuz** biribilduak. Karlos Zabala

Haien parean, beste zirkulu estuago bat osatuz, harrizko zutabe motz astunek **erdi-puntuko arkuei** eusten zieten, aretoari monasterio erromaniko baten itxura emanez. Alberto Ladron Arana

48 *ferra arku*

Atea eta atearen markoa ere falta dira, harrizko horman **ferra arkuko** sarrera dago bakarrik. Joseba Sarrionandia

49 *garaipen arku*

Garaipen arkuaren azpian gelditu nintzen. Josu Zabaleta

Zer ordu zen berriro **Garaipen Arkuaren** azpitik igaro nintzenean? Josu Zabaleta

Hiru zaldi agertu ziren gurdi-atean, **garaipen-arkuetan** zizelatu edo margotzen dituztenen berdin-berdinak. Jose Morales

50 *ingeles arku luze* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Mende hauetako lehena bukatu baino lehen, **ingeles arku luzeak** gaitua zuen David-tarren oinezko armada Goliat-tarren zaldizko armada menderatzeko Crecy-n, eta emaitza hori azpimarratu eta berretsi egin zuen su-armen asmakuntzak eta janizariengandik hartutako diziplina-sistemak. ETC-literatura, saiakera

Ingeles arku luzeari dagokionez, arkulariaren altuera antzekoa edo handiagoa izango du eta ez da kurbatua izango. Hauek, gehienbat ehizan eta gerran erabiliak izan dira mundu kultura ezberdinengatik, gehienbat ingelesak erdi aroan zehar. ETC-entziklopedia

51 *oinaren arku* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Oinaren arkua bizitzaren lehen hamar urtetan garatzen da; bestela esanda, haur jaioberriak ez dauka, berez, horrelako arkurik. ETC-prentsa

Oinaren arkuarekin egin behar da indarra. ETC-prentsa

Oin-zolako faszia **oinaren arkua** mantentzeko tentsioa sortzen duen soka indargetzaile bat da. ETC-entziklopedia

52 *ojiba arku* *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi)*

Sarrerako zaindarien aurrean identifikatu eta gero, burdinazko hesi bat igaro zuen **ojiba-arku** baten azpitik, eta, dozena erdi bat harmaila jaitsita, atari zabal batera heldu zen, non harrizko pilare sendoek eusten baitzieten sabaiko ganga astunei. ETC-literatura, saiakera

Neure buruaren gainean, zeru modura, bobeda baten tankerako **ojiba-arku** bat daukat, eta zintzilik armiarma sare lodiak, piltzarrak balira bezala. ETC-literatura, saiakera

Arku zorrotza edo **ojiba-arkua**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hori dela-eta, terrazetako balaustreetarako **ojiba-arkuzko** amaierak aukeratu zituen, "kokatuko diren tokian berezkoak". ETC-zientzia, zuzenbidea

XIV. mendeko arkupedun enparantzako **ojiba-arkuak** eta Isovoleko marmol gorrizko bataiarria duen eliza erromanikoak ikustea merezi du. ETC-prentsa

Azkenik, herria zeharkatzen duen Lea ibaiaren gainean **ojiba-arkuko** zenbait zubi interesgarri ikusiko dugu. ETC-prentsa

Agerikoenak, arrosa leihoak eta **ojiba arkuak**. ETC-prentsa

Zortzi euskarriak palmera moduan eta hormetako hamabi mentsulen gainean oinarritzen diren **ojiba-arkuetan** irekitzen dira. ETC-entziklopedia

53 *ostiko arku* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Ostiko-arkua edo frantses maileguzko arbotantea (frantsesez: "arc-boutant") bereziki katedral gotikoen kanpo aldeko egitura elementu bat da. ETC-entziklopedia

Gizartearen marko prekapitalista haustean kapitalismoak hautsi egin zituen, beraz, ez bakarrik bere progresua eragozten zuten hesi guztiak, baita porrokatzea eragozten zuten **ostiko-arkuak** ere. ETC-literatura, saiakera

Ostiko-arku baten bultzada jasotzen duen zutabe atala. ETC-zientzia, zuzenbidea

54 *talka arku* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Talka arkua (ingelesez "bow shock") espazioko gorputz baten magnetosfera eta izarrarteko ingurunearen mugako eremua da. ETC-entziklopedia

55 *tudor arku* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Tudor arkua arku zorrotz mota bat da, lau zirkunferentzia atalez osatua eta giltzarrian angelu bat sortzen du. Arku honek hormaren presioagatik leundutako itxura ematen du. ETC-entziklopedia

Tudor arkua eta estilo perpendikular berantiarreko eraikinetan Errenazimentuko xehetasunak erabiltzea dira haren bereizgarri nagusiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

56 *uharte arku* *(corpusean ez dago; ETCn **165** agerraldi)*

Uharte-arkuak plaken arteko muga konbergentetan, subdukzio azpiozeanikoa den inguruneetan bolkanez osatutako arku geometriadun gerriko luzeak dira, jarduera sismiko bortitzak erakusten dutenak. ETC-entziklopedia

Uharte-arkuetako magmek aurreko bi adibideen arteko ezaugarriak erakusten dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste mendikate mota batek eratzen ditu Ozeano Barearen iparraldeko eta mendebaldeko ertzen inguruan eta Indiako Ozeanoako ipar-ekialdean aurkitzen diren **uharte-arkuen** serieak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ozeano Barean, Asiako kontinentearen ekialdea inguratzen duen suzko gerriko bat dago, eta harexen parte da Japoniako **uharte-arku** menditsua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ozeano Bareko kontinente bazterrak -lurrikara asko izaten ditu- **uharte arkuak** izatea du ezaugarri berezia. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arku azpian** (4); **arku bat** (15); **arku baten** (3); **arku elektriko baten** (3); **arku elektrikoek** (3); **arku hori** (4); **arku horren** (3); **arku tiroa** (4); **bi arku** (4); **harrizko arku** (4)
> **arkua eta gezia** (3); **arkua eta geziak** (4); **arkua tenkatzeko gai** (3); **arkua tenkatzen** (3); **eskuinean arkua** (3); **zuen arkua** (3)
> **arkuak ere** (3)
> **arkuaren azpian** (3); **garaipen arkuaren** (3)
> **zazpi arkuko** (3); **zortzi arkuko zubie** (3)

---

arkudun 1 *izond* arkua duena.

Erakusleihoan ageri zen zubi **arkudunak** eta urmaelak zituen lorategi japoniar baten miniatura. Lopez de Arana

Osaba eta "Tante Rose" 1841ean esposatu ziren oso gertu dagoen Notre Dame de Buglose-ren kaperatxo **arkudunean**. Txillardegi

Behere hartan, berriz, nekez ikusteko moduan, "La Gallarda"ko atari **arkudun** eskerga zegoen. Txillardegi

Sabai garaiak, horma osoko leihate **arkudunak**, eta haritz eta pago zurez eginiko eskailera monumentala. Patxi Iturritegi

Esan Melantiori bihar goizean ahuntzik onenak ekartzeko, eta orduan amaituko diagu arku lehiaketa, Apolo **arkudunari** ahuntz-izterrak eskani eta gero. Juan Kruz Igerabide

Atea ere soila zen; ez, Obabako baserri askotan bezala, **arkuduna**. Bernardo Atxaga

2 *zaldi arkudun*

Ia bi metroko kankailua, Sydneyko paralinpikoa bera, barra finkoan eta **zaldi arkudunean** zerbait irabazitakoa gainera, brontzezko domina edo diplomaren bat, horretaz ez zen ondo gogoratzen. Patxi Iturritegi

3 *zubi arkudun*

Erakusleihoan ageri zen **zubi arkudunak** eta urmaelak zituen lorategi japoniar baten miniatura. Lopez de Arana

---

arkulari *iz* arkua erabitzen duen gerraria.

Zalditeria bi taldetan banatua zuten; habailariak, **arkulariak** eta gizonik adoretsuenak gudarostearen aurrealdean zetozen. Elizen arteko biblia

Arkulariak ez dio bere buruari eutsiko, oinezkoa ez da bizirik aterako, ez eta zaldizkoa ere. Elizen arteko biblia

Arkulariak ziren, geziak nahiz harriak jaurtikitzen trebeak, nola eskuinez hala ezkerrez. Elizen arteko biblia

Alferrik teinkatuko du **arkulariak** uztaia, alferrik jantziko bular-babeskia. Elizen arteko biblia

Berehala, **arkulariek**, beren kokagunean jarri, eta geziz josi zuten harresiaren goialdea. Jon Muñoz

Arkulariek geziak jaurtiki eta zauritu egin zuten Josias. Elizen arteko biblia

Bat-batean behera egin zuten, harresian zeuden **arkularien** geziek harrapatzeko bezainbeste hurbilduz ia, baina gero urrundu egin ziren, zirkuluka hegan. Agustin Otsoa

.Aurrera eta aurrera zetozen, erori eta hildakoengatik kezkatu gabe, makurtuta eta taldeka, **arkularien** tiramenean. Agustin Otsoa

Ermitaua eta printzesa, atzean Nafarroako **arkularirik** onenak segika zituztela, basoan barrena abiatu ziren, adarbakarrak gustuko omen zuen iturriaren bila. Martin Anso

Ezaugarri bat emango diet: beraien artean bizirik geldituriko batzuk nazioetara bidaliko ditut, Tarsis, Put eta **arkulari** trebeak dituen Ludera, Tubal, Grezia eta urrutiko herrietara, inoiz nire berri izan ez duten eta inoiz nire ospea ikusi ez duten herrialdeetara. Elizen arteko biblia

Ulamen semeak gudari adoretsu izan ziren eta **arkulari** iaio. Elizen arteko biblia

Han-hemenka, munstro handien zerraldoak ikusten ziren, erdizka kiskalita, harrika suntsituta, edo begiak Morthondeko **arkulari** ausarten geziek zeharkatuta. Agustin Otsoa

Aukerako ehun eta hogei mila gudari eta hamabi mila zaldun **arkulari** hautatu zituen gudurako. Elizen arteko biblia

---

arkuma ik **arkume**.

---

arkume *(orobat **arkuma** g.er.)* 1 *iz* ardiaren kumea, eskuarki amaren esnea hartzen duen garaian. ik **antxu**; **axuri**; **bildots**; **umerri**.

Arabiakoek eta Kedarko printze guztiek zurekin egiten zituzten tratuak, **arkume**, ahari eta akerrak salerosiz. Elizen arteko biblia

Bosgarren egunean, bederatzi zekor, bi ahari eta urtebeteko hamalau **arkume**. Elizen arteko biblia

Arkume bat zekarren lepoan, eta ez zirudien Tabira han ikusteak ustekabean harrapatu zuenik. Joanes Urkixo

Obispoak lau karta zeuzkan eskuetan, eta hiltegira doan **arkume** baten begiez begiratzen zigun Karmeni eta niri. Inazio Mujika Iraola

Garia, ardoa eta olioa oparo emango dizkizue, eta zekor eta **arkumeak** ugalduko, zuen arbasoei zin egindakoaren arabera emango dizuen lurraldean. Elizen arteko biblia

Jarraian, ardiak eta ahuntzak jeizten hasi zen, banan-banan; bakoitzarena amaiturik, **arkume** edo antxume jaioberri bat jartzen zion azpian. Juan Kruz Igerabide

Laugarren figura artzainak osatzen zuen, bizkarrean **arkumea** zekarrela. Xabier Etxabe

Ukuiluak, berriz, **arkumez** eta antxumez beterik zeuden, denak hesiz bereizirik: alde batean jaioberriak, beste batean handixeagoak, bestean handienak. Juan Kruz Igerabide

Hona herriak oparitzat eskaintzen dituen zekor eta **arkumeetatik** lebitarrei eskubidez dagokiena: sorbalda, matrailak eta urdaila. Elizen arteko biblia

V. mendean bizi izan zen, eta **arkume** batzuk zaintzen omen zituen. Pello Zabala

Hiltzera daramaten **arkumeak** bezala, moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu.

Ez diozue oparitzat eskainiko Jaunari zeuen Jainkoari inolako akatsik duen zekor edo **arkumerik**, higuingarri baitzaio hori. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gerora, platerean, haragiak ez du zerikusirik idisko gorri, untxi jolasti edo **arkume** otzanarekin, noski. Edorta Agirre

Emakume babesgabeei zintzurra moztu zenieten **arkume** errugabe bailiran. Jon Alonso

Gizon horiek, lerdenak eta sendoak, batez besteko garaiera baino altuagoak, aurpegiera basati zakarrekoak, talpak izeneko txanoa janzten zuten buruan, **arkume** beltzaren larruz egina. Karlos Zabala

Arkume osoak ere baziren han, eta idi laurdenak, txahal mokorrak, besaburu aldeak. Karlos Zabala

Larunbatetan, printzeak sei **arkume** akasgabe eta ahari akasgabe bat eskainiko dizkit erre-oparitzat. Elizen arteko biblia

Arkume jaioberriaren antza dauka Zaratek. Berria - Kirola

Izan ere, hark "Abere nabarrak izango dituzu lansari" esaten zuenean, ardi guztiek **arkume** nabarrak egiten zituzten; eta "Abere marradunak izango dituzu lansari" esaten zuenean, abere guztiek ume marradunak egiten zituzten. Jose Antonio Mujika

"Pintoak izango dituzu lansari" zioenean, ardiek **arkume** pintoak egiten zituzten. "Marradunak izango dituzu lansari" zioenean, aldiz, ardiek **arkume** marradunak egiten zituzten. Elizen arteko biblia

Hartu **arkume** onena; gero, pilatu azpian egurra, irakin dezala borbor, hezurrak ere ongi egosteko. Elizen arteko biblia

Ardikiz elikatzen zarete, artilez janzten eta **arkumerik** ederrenak hiltzen dituzue, baina ez duzue artaldea zaintzen. Elizen arteko biblia

Jose Pablo Larrea Arkumearen mahaiko koordinatzailearen arabera, datua oso ona da, iaztik hona %51 handitu baitira **arkume** labeldunak. Berria - Ekonomia

Ardoa ona eta **arkumea** ere eskasa ez, lepo egin artekoa izan zen kartzelako egoitzan bertan egindako otordua. Harkaitz Cano

San Jose inguruan jaio diren **arkume** jostarinak pendizean behera piririkan ikustea zerbait berria da arditzar geldien ondoan. Pako Aristi

Harategietako kakoetan zintzilikatzen dituzten **arkume** larrutuak bezala. Hasier Etxeberria

Arkume errea edo horrelakoren bat. Hasier Etxeberria

Sua eta egurra baditugu; baina non da oparitarako **arkumea**? Jose Antonio Mujika

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Begiratu eta begiratu egiten zuen, bere bi **arkume** begi handi haiekin. Josu Zabaleta

Pogatxa pastel antzeko bat da, **arkume** koipez prestatzen dena. Karlos Zabala

Txabola batzuetan, Nadiak **arkume** okela apur bat aurkitu zuen. Karlos Zabala

Gero goiz hartan bertan badiako harkaitzetan harrapatutako ostrak ekartzen dizkit, **arkume** saihets bi, lupia frijitua, arrain gozoa zinez. Koldo Izagirre

Haragi errea, oilasko errea, txerri-txuletak eta **arkume**-txuletak. Iñaki Mendiguren

Egun batean, **arkume** izter puska bat eramanarazi ere egin zion hark, enperadorearen plateretik zetorrela esanez. Karlos Zabala

Arreba txikiak ere albo batera utzi du berari zegokion **arkume** puska. Josetxo Azkona

Niganaino iritsi zen bere usaina eta ezagutzen nituen perfumeen nahasketa infinitua iritsi zitzaidan: euri-urarena, lokatzarena, esnearena, **arkume** artilearena, adar errearena. Berria - Kultura

Artile nabarreko **arkume** sailak zebiltzan bazkan batetik bestera, eta txerri eta txerrikume zuri-beltzak ageri ziren talde jorietan bildurik. Karlos Zabala

Gaur goizean elkarrekin zineten berriz ere barrukien pabiloian, **arkume** buruak nola puskatzen ari ziren begira. Karlos Zabala

Eskoziako jakia; **arkume** barrukiak, oloa eta espezieak aberearen hesteetan egosiak. Gaur egun, asko nahastu dira **arkume** jaiotzak, ia urte osoan jaioarazten dituztenak ere badira-eta. Iñaki Mendiguren

Arkume zaintzak dituen lanetan trebeak ohi dira artzaintsa edo artzain-neskak. Pello Zabala

Arkume-jate batera gonbidatzen baikintuen urtero. Xabier Mendiguren Elizegi

Gela-bazterreko altzaritxo oinetakoz betean, **arkume**-larruz estalitako bi bota motz aukeratu zituen. Jon Muñoz

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pazko-**arkumea** hamabi apostoluekin jan, eta hilko zela adierazi zien: "Egiaz diotsuet: zuetako batek salduko nau". Patxi Altuna

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arkume akasgabe (3); **arkume bakoitzeko lau** (6); **arkume bat** (6); **arkume baten** (5); **arkume edo** (4); **arkume errea** (3); **arkume izter** (4); **bi arkume** (4); **kilo eta arkume** (6); **urtebeteko hamalau arkume** (7); **urtebeteko zazpi arkume** (6)

arkumea edo (3)

arkumeak bezala (9)

arkumetxo bat (3)

ene arkumetxoa (3)

---

arkumeki *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* arkumearen haragia.

Ehizakiak, ternasco edo **arkumekiak** eta txerrikiak, adibidez, perretxikuekin, boilurrekin eta usain-belarrekin nahasten dituzte. ETC-prentsa

---

arkumetu, arkume(tu), arkumetzen da *ad* arkume bihurtu, arkumearen jokaera hartu.

Beharbada gidari baten atzetik **arkumeturik** zihoazen turistei begira egin dut gogoeta hori. Patxi Zubizarreta

---

arkumetxo **1** *iz adkor* arkume xumea.

Gau hartan arditxo batek **arkumetxoa** egin zuen. Askoren artean

Neskatxak txerak egiten eta xingola zerurdin batez apaintzen zuen **arkumetxo** bat hesi-sastakan zauritu zen. Juan Garzia

Bai, larrabehia bezain bihurri da Israel. Nola larratuko ditu, bada, Jaunak zelai zabalean, **arkumetxoak** balira bezala? Elizen arteko biblia

Ez du txapeldunaren estutasunik, hiltokira doan **arkumetxoaren** jarrera hartu du finalaren bezperan, baina ez da otsoaren beldur. Berria - Harian

Goizean jaikitzean, hilik aurkitu zuten **arkumetxoa**, eta berehalaxe konturatu ziren urdanga zela okerraren errudun. Askoren artean

Pedrok arkume bat erosi zuen ezkontzarako eta Luisaren soinekoa Ciudad Realetik iritsi bitartean, egunero joaten ziren olibondoetara, gari arteko bideetara paseatzera, atzean beti Lucero **arkumetxoa** zutela. Jon Maia

2 (norbait izendatzeko)

Utikan!, ene **arkumetxoa**, gure eztei-bidaia da. Mirentxu Larrañaga

Ez al duzu nire musuzapia nahi, **arkumetxo**? Mirentxu Larrañaga

-Egon pixka bat, **arkumetxo** -protestatu zuen Belaskok biziki-. Joanes Urkixo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arkumetxo bat (3)

---

arkupe **1** *iz* arku baten azpialdea.

Eskailerak igotzen hastean ez da ezer ikusten behetik, goian eskailera amaiera eta zerua baino ez baleude bezala; baina igo ahala, **arkupea** ikusten da eta zuhaitzak eta pertsonak. Unai Elorriaga

Arkupea ere, dena maila berdinean egina eta alderik alde zutabe berdinez euskarritua izan arren, mutur batetik bere luzera osoan ikusita, apurka-apurka konoaren punta zorrotzeraino estutzen da. Xabier Amuriza

Lehengo xendra orain bidea zen, baina oraindik Indi gaztainek **arkupea** egiten zioten beheko belarrari. Anton Garikano

Elizaren **arkupeak** hutsik jarraitzen zuen; ez zebilen inor pilotan jokatzen; Indi gaztainek alferrik egiten zuten itzal. Bernardo Atxaga

Ez nuen entzuten ibaiko ura zubiko **arkupean** borborka. Josu Zabaleta

Etorri zen kapitain bat, capitán Degrela, eta harenga bat eman zuen udaletxeko **arkupean** herriko zazpi gizon fusilatu eta gero. Bernardo Atxaga

Udaletxe pareko **arkupean** dago Floren, Manexekin, gau hura. Eider Rodriguez

Berehala bizitu zen argi zuria, **arkupearen** azpiko iluntasuna uxatuz. Agustin Otsoa

Bururatu zitzaidan beste ezezagun bat ere bazebilela inguruan, **arkupearen** bestaldeko hondartzatik etorria, eta bat-batean ahots ozen hura entzungo zuela zuloren batetik. Koro Navarro

Arkupeko pasabidetik aurrera egin zuten. Iñaki Mendiguren

-Bazkalduko dugu elkarrekin? -galdetu dio potoloak **arkupeko** burdindegiko ate ondoan. Pello Lizarralde

Berriz zutitu ginen, beltz jipoituak bagina bezala, **arkupeko** hilobi hartan. Koro Navarro

Zubigainetik bezalaxe, zubiaren **arkupetik** iragotzeak zoriaren mudantza sortzen du. Patziku Perurena

Itsaso oliotsutik bueltan zetozen mutikoei begira egon ginen; oihu egiten zuten **arkupetik** pasatzean, arkuak oihartzun egiten zuen, eta gero ahotsak moteldu eta galdu egiten ziren. Koro Navarro

Sarrerako **arkupetik** karrikaraino berrogeita hamarren bat harmaila izanen dira. Pello Lizarralde

Bide asfaltatua muinoan gora doa, harik eta harrizko **arkupe** batera iristen den arte. Joseba Sarrionandia

-Zuhaizti hau gainditzen duzunean, harrizko **arkupe** handi baten azpitik igaroko zara. Joanes Urkixo

Haren ahaleginak sotoko **arkupe** kobreztatutik atera nahian! Koro Navarro

Lehenengo begiratuan, ordea, ez du inor ikusi, eta **arkupe** zabalera irten da. Patxi Iturritegi

Zuen enbarkazioa izotzezko triunfoaren **arkupetik** pasatuko da. Joseba Sarrionandia

Ibilbide luze bat, **arkupez**, iturriz, parkez inguratua, eta, parke horietan, hegoaldera egindako espedizioetatik ekarritako animalia mordoa; pintura-galeria bat, estatua-bildumak. Jon Muñoz

2 (pluralean)

Goizean bezala, plazako **arkupeak** zeharkatzeko biderik laburrena aukeratu du. Iban Zaldua

Aise bilatu dut ostatua, bigarren eskuko liburuen saltokiz beteriko **arkupe** batzuetan. Anjel Lertxundi

Garai bateko kai zaharra osatzen zuten kalexkak dakuskigu, harrizko **arkupe** dotoreekin. Pako Aristi

Inguratzen duten etxe altuetarik batzuk **arkupe** erraldoietan daude altxatuak. Koldo Izagirre

Arkupeetan, petroliozko argiontzi triste batzuen argitan, zenbait buruzagi karlista paseoan zebilen. Koro Navarro

Kioskoan egoten ginen, edo plaza ondoko **arkupeetan**, eta arratsalde osoan bi edo, asko jota, hiru aldiz sartzen ginen tabernaren batera, zurito bat edatera. Iban Zaldua

Egun osoan elkarteen foroa Galuperie kaian eta Tonnelieren karrikako **arkupeetan**. Herria

Morroiak **arkupeetan** barna jarraitu zuen, kantoi batetik sartu, etxe handi batean ateari bultza egin eta argiontzi handi batek argituriko atari dotore batean sartu zen. Koro Navarro

Kale kantoian, norabidez aldatu, eta, Plazaren zoladura gurutzatu ordez, saihetsera alderatu zen, **arkupeetan** barrena. Pedro Alberdi

Arkupeetako zutabe baten kontra bermatu ninan gorputza. Juan Garzia

Etxera joan; eta Putzu kalera, Plaza Berriko **arkupeetara**, edo Kamingaintxoko igerilarietara hurbildu beharrean, "Morse" apurtxo bat egin ezak; eta gero ohera. Txillardegi

Klarak beste alderantz begiratu zuen, pasealeku azpiko **arkupeetarantz**, arreta beste zerbaiti emanda. Iñaki Iñurrieta

Banaka batzuk galeriaraino eta elizako **arkupeetaraino** joan ziren, txaletetik berrehunen bat metrora. Josu Zabaleta

Gidariak, Udineko autobusetik jaitsi, eta **arkupeetako** taberna handian sartuak ziren kafe edatera. Josu Zabaleta

Larraillèreko geltokiaren aurreko burdinazko **arkupeek** ere, kioskoa inguratzen zutenek, alde asko eta askotatik, Herausterriko tren geltoki berria ekartzen zidaten gogora. Txillardegi

Torino desberdindu beharko banu eta bakandu ezagutzen ditudan gainerako hirietatik, ia amaierarik gabeko **arkupeak** (hogeita bi kilometro) eta oregano-usaina (pizzek eraman ohi duten espezie nagusia) nabarmenduko nituzke hiriaren ezaugarritzat. Anjel Lertxundi

Briones andrearen etxea erdialdean zegoen, **arkupeekiko** kale batean. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

Arkupe-bide errezelaz estalitako batek bakarrik isolatzen zuen logelako intimitatea egongelan zeudenengandik. Mirentxu Larrañaga

Noizbehinka **arkupe** azpira ere palastatzen da ura. Joxe Austin Arrieta

Arkupe tartearen erdi aldera ailegatu zenean, hango zutabe ondoak arakatu zituen lehenik. Pedro Alberdi

Zinematik irten eta **arkupe** tartetxoa ibili ondoren, Astarloa kalera atera zen. Pedro Alberdi

Baiona Ttipiko Galuperieko **arkupe** ilara, Errobiz bestaldean, inoiz baino ilunago eta beltzago agertzen zitzaidan. Txillardegi

San Juan Plazatik pasatzean, mendebaldeko **arkupe** ilaran irmo, eguneko errege-zainketa egiten zuten alabarderoak topatu nituen. Txillardegi

4 irud/hed

Errainu handi bat estalpeko kalearen mutur urrunetik barneratu eta pabiloien masa zulatzen zuen, argizko **arkupe** bat eratuz. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

harrizko arkupe (3)

amaierarik gabeko arkupeak (3)

udaletxeko arkupean (3)

arkupeetan barrena (4); **arkupeetan sartu** (3); **plazako arkupeetan** (5); **udaletxeko arkupeetan** (4)

---

arkupedun **1** *izond* arkupea duena; arkupeak dituena.

Etxearen aitzinaldea maskor beltz baten kusku bakarra zen, eta ate **arkupeduna** belarri entzule bat. Koro Navarro

Horregatik eraiki omen zituzten etxadi **arkupedunak**, Alpeetako haize bero eta hotzen eraginetik babesteko. Anjel Lertxundi

2 (izenlagun gisa)

Andre zahar bat ikusi dut **arkupedun** galeriatik uzkur irten eta Impétrazi begira gelditu dena, tematí eta maltzur. Monika Etxebarria

---

arkupetsu *izond* arkupe asko dituena.

Atearen eskuinera harrizko maila zabalak, eskaileraburuan jauregiaren inguru osoa egiten duen ibilgu **arkupetsua** landarez laztandua, hormetan Erosen koloreetako azulejoak argi printzez horditurik. Edorta Jimenez

---

arkupetu *izond* arkupea ezarri zaiona.

Bihotza punpaka jartzen didaten plaza **arkupetuak**, uharrizko mosaikoz eginiko zoladurak, balkoi gerizpetuak, girgileriaz margoturiko etxeak ikusten ditut. Koldo Izagirre

---

arkuteria *iz* eraikuntza bateko arku multzoa.

Lard kalea ere oso atsegingarria gertatzen zen, meharra, jende gutxikoa, Lingerie kale aldera ematen zuen **arkuteria** zabal harekin. Karlos Zabala

Etxeko atea **arkuteria** haren alboan zegoen hain zuzen; ate baxua zen, erdizka baino zabaltzen ez zena, eskailera kiribil baten maila koipetsuekin trabatzen zelako. Karlos Zabala

---

arkutu, arku(tu), arkutzen du *ad* arku forma eman.

-Emaion bularra! -agindu dio umearen aitak, Basajaun ikaragarriak, bekainak **arkutuz**. Anjel Lertxundi

Josebaren bekainak gogorki **arkutu** ziren, begiak erregutan zabaldu eta atzamarrak sarde hortzak bezala mugitzen ziren aire pisu hura zulatzen. Iñaki Zabaleta

---

arlekin *(orobat **Arlekin** g.er.)* **1** *iz* Artearen komediako pertsonaia, koloretako erronboekiko jantziekin janzten zena.

Espaloia alprojez borborrean zegoen, lurrean aztarrika, han landaturiko platanoen burdin hesien azpian; zamaketariak pipa erretzen zuten postuen ilaran; espaloiaren bi muturretan, antzerki afixez beteriko bi iragarki zutabe zeuden, karratu berde, hori, gorri, urdinez estalirik, **arlekinen** antzera jantziak. Karlos Zabala

Aneren kolega **arlekin** bilakatu zen, uju eta salto lokalean hara eta hona. Unai Iturriaga

Ez nuen egundaino ikusi **arlekin**-beroki egokiagorik. Koldo Izagirre

Bonba atomikoaren kontrako bilkurak antolatzen hasi gara, eta bilkura haietan mimoa eta malabareak egin nahi ditut bakearen alde: **Arlekin**, deus ere ulertzen ez duena; Sganapino, suarekin jostatzen dena; Zane, musikari zirtolaria. Fernando Rey

2 ***ahate arlekin*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ahate arlekin, Histrionicus histrionicus. ETC-entziklopedia

3 ***galeper arlekin*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Galeper arlekin, "Coturnix delegorguei". ETC-entziklopedia

---

arlo *(ETCn **89.781** agerraldi)* **1** *iz* zernahi giza jardun banatzen den zati bakoitza; delako zati horietako batek hartzen duen guztia. ik **esparru**; **alor 1**; **sail 3**.

Bata, nire eta zinemaren arteko harremanak ez zirela kuttuntasun eredu, idaztea zela nire **arloa**. Xabier Mendiguren Elizegi

Hori areagotu egiten da politikaren **arloan**; jende artean ezaguna eta onartua izatea lortzen ez duena inolako begiramenik gabe desagertzen da. Juan Kruz Igerabide

Nahiago baduzu nire autoan joan, horrek esan nahi du prest zaudela eguneroko bizitzaren **arlora** pasatzeko. Bernardo Atxaga

Gehienez ere poetikaren **arlotik** edo azken aldian ikuspegi poetiko-erretorikotik. Andoni Egaña

Askotan, gainera, **arloen** arteko mugak gero eta iheskorragoak dira: zer da gaur egun biokimiko bat medikuntza, kimika, matematika edo fisika aldi berean erabiltzeko gai ez bada? Pello Salaburu

Haren interesekoa ez da, ostera, ideien edo teorien **arloan**, ekintzen eremuan baino. Edorta Jimenez

Patxi, baina, bere aita medikua bezalakoa atera zen hainbat **arlotan**, hark ere ez baitzuen jauntxoekin biltzeko astirik aurkitzen. Joan Mari Irigoien

Gustuko **arloa** dut, gustuko egiteko manera dut, holako iniziatibak hartzea, bai. Menane Oxandabaratz

Eta beste zenbait **arlotan** Egunkaria-k harturiko hainbat irizpide esportatzea lortu bada ere, nago ez dela hori gertatu grafiaren anabasa honekin. Iñigo Aranbarri

Ahalegin horren gakoetako batek, halabeharrez, garraio **arloa** izan behar zuen: trenbide-sare bat eraikitzea premiazkoa zen. Iban Zaldua

Eta gizarte zapaltzaile eta santujale hari mingarrienak zitzaizkion **arloetan** gauzatzen du bere apurketa-lana: sexuaren eta erlijioaren **arloetan**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beste ondorio bat ere atera du Udalbiltzak: herri eragileek hezkuntza **arloan** izan duten parte hartzea oso ezberdina izan dela **arloz arlo**. Berria - Euskal Herria

Bigarren fasean **arloz arloko** mahaiak osatu nahi ditu Nafarroako Emakumearen Institutuak. Berria - Euskal Herria

Diskurtso unibertsalista horren barruan euskararen **arlora** etorriko gara. Joxe Azurmendi

Burua itzulikatuz, ohartuko zinateke neska horrek saltegi osoa zeharkatzen duela, diskoen **arlora** joateko. Ramuntxo Etxeberri

Denek gogoko zuten **arloa** zen hura. Irene Aldasoro

Ipuin Orokorra, alegoria den partez, konkretatu egiten dela aldiro, premiaz premia, **arlorik arlo**. Bernardo Atxaga

Izatekotan ere, filosofiaren edo politikaren **arloan** sartuko ginateke). J.M. Olaizola "Txiliku"

Beste **arloetan** ere, hitz berak erabil ditzakezu. Xabier Amuriza

Nik ez nuen hartaz inolako iritzirik, sekula ez dut iritzi zehatzik izan politikaren **arloan**. Joxan Elosegi

10. Denbora aurrera joan ahala, anaiak ugaritzen ari ziren, eta artzain arduraduna anaiak Portziunkulako Santa Marian Kapitulu jeneralera deitzen hasi zen, bakoitzari obedientziak izendatzen zion **arloa** emateko pobreen lurraldean, Jainkoak erabakitako banaketaren arabera. Askoren artean

Hiriburuen eginkizun historikoa epe luzera erlijioaren **arloan** aurkitzen da sarri. Iñaki Mendiguren

Ama izateko prestatzen ari denak segituan ikasten du, bizitzako beste edozein **arlotan** bezala honetan ere, gauzak ondo edo gaizki joan litezkeela, bi aukerak direla posible. Arantxa Iturbe

Ezein ingeniari, kimikari edo materialen **arloko** zientzialarik inoiz asmatuko ez lukeen moduan eginda dago betekizun zail horiek betetzen dituen materiala. Irene Aldasoro

Txukuntasunaren **arloa** alde batera utzita, biziraupen kontuetan ere lehenengotatik ondo moldatu ginen. Jon Arretxe

"Alor anitzeko" jakintsuak ziren gehienak; medikuntzaren, astronomiaren, filosofiaren, fisikaren eta matematikaren **arloan** arituak, alegia. Jon Muñoz

Zientziaren **arloan** ezin daiteke ulertu gizabanakoaren sorrera, gizakia eratzen duen gizaginkode holistiko horren berri ezer jakin gabe. Jenaro Garate

Sexuaren **arloan** arau eta zigor asko ezarri dira. Luis Elberdin

Urtarril hartan, metalaren **arloko** milaka langilek greba egin zuten Bilbon, soldaten igoera eskatzeko. Rafa Egiguren

2 (izenondoekin)

Gainera, musika entzun eta beste egiteko aukera ere ematen du, oso **arlo** garrantzitsua ukituz: astialdia. Berria - Euskal Herria

Horrek esan nahi dik, **arlo** militarretik ikusita (eta hau gerra bat duk, zuei kasu eginez gero behintzat), estatuak motiboak dituela bere estrategiari eusteko, baina ez euskal biolentziak. Mikel Hernandez Abaitua

Arlo filosofikoan, moralean, legalean zein pedagogikoan sutsu aldarrikatu zuen ezberdintasuna. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Dominique pozten zen bera ez baitzen hain **arlo** arriskutsuan gezurka aritzea behartua, nahiz haren laguna harrapatzen baldin bazuten, biak hartu eta gillotinara igorriko zituzten. Elena Touyarou

Baina eskola horrek, **arlo** berri eta emankor bat urratzeko meritua izan arren, ez zuen erdietsi benetako zientzia linguistikoari hasiera ematea. Isabel Arrigain

Arlo akademikotik hasita -tesirako proiekturik ba ote neukan, ikerketarako nire gai gogokoenak- nire egoera profesionalera igaro ginen -lan-merkatuaren larria, nire asmo eta esperantzak, momentuko eginkizun txatxuak-. Xabier Mendiguren Elizegi

Arinek **arlo** kulturalarekin zeukan loturaren berri eman zion. Rafa Egiguren

Eta gabezia horrek kalte handia egin zidan bizitzan zehar **arlo** profesionalean, Hiztegi Entziklopedikoaren edukia bezeroaren gustuen arabera aurkezteko orduan bereziki. Ramon Saizarbitoria

Eta emazteak barkatu badio, **arlo** pribatua publiko egin den honetan, nor gara gu bera erruduntzat jotzeko? Patxi Zubizarreta

Argigarri, hala ere, denontzat, Kode Zibilera biltzen baita **arlo** zibileko zuzenbidearen eskarmentu luzea. Andres Urrutia

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikasleak, bitartean, hontzak soilik egiten duen antzera, aldagabe begira zeuden Ingurune **arloko** irakasleari. Josetxo Azkona

Bertsolaritzaren autoeraketa: gizartegintza modu bat kultur **arloan**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bera antolakuntza **arloaz** arduratuko zen, eta Hausterri ez zitzaion batere gaizki etorriko hizkuntza lantzea: filosofia ere euskaldundu beharko zen noizbait. Iñaki Iñurrieta

Maisutza industrialeko ikasketak zituen, tornularitza **arloan**, baina beti gora begira bizi zen, gizon anbiziosoa baitzen, esan dut lehenago. Joan Mari Irigoien

Gramatika kategorien mudantza-**arlotan** barrena abiatu nintzen. Joxan Elosegi

Bere garapen mailarik handiena agintarien eskuetan eman ohi du, eta politika **arloan** karrera egiteko hornidura baliagarritzat hartu ohi da. Xabier Olarra

Nikaragua zen urte haietan Sandraren kezka nagusia, beste borroka-**arloak** bigarren mailan eta euskaltegia bosgarrenean uzteraino. Xabier Mendiguren Elizegi

Gutxi bezalako erabakia zen hura, eta lehenago makina bat bider atzeratua; zeren, hirigintza eta eraikuntza publikoaren esparruan ospe merezia lortua bazuen ere, deseroso sentitzen baitzen dekorazio **arloan**. Patxi Iturritegi

Sinesgaitza zen bi izaki orotan hain berdinak izatea, gorputz **arloan** bai izpiritu **arloan**. Elena Touyarou

Musika **arloan** bertutetsua ez zela onartu bazuen ere, ez zuen beharrezkotzat jo Paganini bihurtzea emakume hura ezagutzeko. Aritz Gorrotxategi

Nafarkaria-ko arduraduna izan zen hainbat urtez eta egun Berria-ko kazetaria da, ingurumen **arloari** arreta berezia eskainiz. Edurne Elizondo

Sexu **arloan** inoiz eginiko inbertsiorik txarrena egin eta gero, bakarrik gelditu zenean, pote bat garagardo hartu, purutxo bat piztu, eta ohe gaineko anabasara itzuli zen. Migel Angel Mintegi

4 ***jakintza arlo***

'Bizitza' kontzeptua eztabaidagai nagusi izan da **jakintza arlo** guztietan. Berria - Gaiak

Alde batetik, batzorde bereziak egongo dira; **jakintza arlo** bakoitzeko bana (matematika, natura eta abar). Berria - Euskal Herria

Watson eta Crick-ek ADNa aurkituz geroztik, **jakintza-arlo** horrek gune-guneko leku bat hartu du mundu bizia interpretatzeko eta azaltzeko gure sisteman. Juan Garzia

Akademiak ondo funtzionatuko balu ere (eta gaur egungo euskarazko unibertsitateetan, zinez, ez da horrela), nekez bil lezake gazte batek gurea bezalako **jakintza-arlo** batean funtsezkotzat jotzen den ondare literario osoa. Askoren artean

Gutxiengo sofistikatuago batentzat, testu sakratuaren azterketa kritikoa goragoko kritikan ikasteko bidea izan zen, geroago **jakintza-arlo** guztietan erabil zitekeena, benetan gertatu zen bezala. Iñaki Mendiguren

Baina gero gauzak aldatu dira, zorionez, gaur egun **jakintza arlo** gehienak ukitzen direlako unibertsitate ofizialean, gehiago edo gutxiago, baina denetarik aurki daitekeelako. Pello Salaburu

Gaur egungo ikerkuntzan, **jakintza-arlo** desberdinetatik giza hizkuntzari buruz egiten diren azterlanen elkargunea hizkuntzari dagokion garun-atala da. Itziar Laka

Hezkuntza eta ezagupenak: oso onak, batez ere bere **jakintza arloari** dagozkionak. Alberto Ladron Arana

-Nik, jakina, ezin dut bat egin Wirth irakaslearen ateraldi horiekin, nahiz eta bere **jakintza-arloan** trebe agertu izan den. Anton Garikano

Horren ondorio naturala da norbera ekonomia arazoei buruz arrazoitzeko gai dela uste izateko joera, beste **jakintza arloetan** ezinbestekotzat joko litzatekeen gutxieneko prestakuntzarik gabe". Iñaki Heras

5 ***lan arloko abokatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Gilek **lan-arloko abokatu** eta greba-bitartekari ateratzen zuen bizimodua, baina Newark hiriko udalaren aholkulari ere bazebilen hirurogeietako lehenbiziko urteetan. ETC-literatura, saiakera

Atochako sarraskian, 1977ko urtarrilaren 24an, Espainiako Alderdi Komunistako eta Langile Komisioak Langile Komisioetako (CCOO) bost **lan arloko abokatu** hil zituzten eta lau zauritu. ETC-entziklopedia

Lan arloko abokatua eta Laneko Jazarpen Moralaren Euskal Behatokiko kidea da Domingo Arizmendi. ETC-prentsa

Madrilen dudan **lan arloko abokatuak** baimena ukatutakoen makina bat kasu izan ditu. ETC-prentsa

Lan arloko abokatuen mugimenduak zeregin garrantzitsua izan zuen frankismoaren kontrako borrokan. ETC-prentsa

6 ***merkataritza-arlo***

O'Carroll gizajoa, Kernan jaunaren aspaldiko laguna, garai batean **merkataritza-arloan** garrantzi handiko gizona izana. Irene Aldasoro

Industrian dezente apalagoa izan bazen ere, deialdiak oihartzun handia izan zuen **merkataritza arloan**. Berria - Harian

Osasun, industria eta **merkataritza arloan** desoreka itzela dago herri batetik bestera, Nafarroako Gobernuak ez duelako inbertsio handirik egiten. Berria - Euskal Herria

Estatutuaren arabera **merkataritza arloan** eskuduntza osoak ditugu. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arlo askotako** (8); **arlo askotan** (23); **arlo bakoitzeko** (12); **arlo bat** (30); **arlo batean** (14); **arlo batzuetako** (9); **arlo batzuetan** (44); **arlo batzuk** (10); **arlo berri** (10); **arlo desberdinetan** (7); **arlo ekonomikoa** (12); **arlo ekonomikoan** (23); **arlo ezberdinetan** (8); **arlo fisikoa** (8); **arlo guztiak** (24); **arlo guztietako** (11); **arlo guztietan** (119); **arlo hau** (9); **arlo hauetan** (8); **arlo honetako** (7); **arlo honetan** (56); **arlo hori** (33); **arlo horiek** (15); **arlo horietan** (15); **arlo horren** (7); **arlo horretako** (17); **arlo horretan** (226); **arlo horretan ere** (10); **arlo horri** (7); **arlo juridikoan** (12); **arlo militarrean** (8); **arlo pertsonalean** (22); **arlo politikoan** (24); **arlo pribatuan** (7); **arlo publikoan** (11); **arlo soziala** (7); **arlo sozialean** (22); **arloz arlo** (15); **beste arlo batzuetako** (8); **beste arlo batzuetan** (24); **bi arlo** (24); **bizitzako arlo** (15); **bizitzako arlo guztietan** (8); **bizitzaren arlo** (11); **hainbat arlo** (16); **hiru arlo** (9); **jakintza arlo** (29); **lau arlo** (9); **zenbait arlo** (7); **zuen arlo** (8)

---

arloka **1** *adlag* arloen arabera; arloz arlo.

Hona hemen tesien kopurua **arloka**: 61 zientzia esperimentaletakoak, 61 gizarte zientzietakoak eta zuzenbidekoak, 48 osasun zientzietakoak, 27 humanitateetakoak eta 27 ikasgai teknikoetakoak. Berria - Euskal Herria

Arloka, Lurraren Zientziei buruzko arloan atera dute ikasleek emaitzarik onena. Berria - Euskal Herria

Lurraldeen arteko harremanak sakondu eta bultzatu nahi ditugu, sistema kapitalistak osatu duen antolaketa orokorrari hausnarketa orokorraren bidez erantzun behar zaiolako, tresnak **arloka** eraikiz. Berria - Euskal Herria

2 ***arlokako*** *izlag* arloen araberakoa.

Arlokako problematika landu zuen Gazteriak-ek, tartean, euskararen edo bizi-baldintzen alorretan borrokak piztuz. Berria - Euskal Herria

Gutxiengo Hizkuntzen Europako Karta euskararen lurralde eremuan, EAEn nahiz Nafarroako Foru Komunitatean, betetzeko Behatokiak gomendio ugari eman ditu, orokorrak nahiz **arlokako** gomendio bereziak. Berria - Euskal Herria

Tailer orokor bat eta **arlokako** hamar tailer antolatu dituzte. Berria - Euskal Herria

Ekarpenak jaso ahal izateko jardunaldiak **arlokako** tailerretan antolatuko dira. Berria - Euskal Herria

130 pertsonatik gora bildu ziren bertan, eta **arlokako** eragileen esperientziak eta herritarren testigantzak entzun ahal izan ziren, euskaldunen hizkuntza eskubideen egoeraren argazkia osatu arte. Berria - Euskal Herria

---

arlotada *iz adkor* arloteari dagokion ekintza, gaitzesgaritzat hartua.

Bere betiko hobbya Ogam (marratxoz egindako idazkera famatua) dezifratzea zenez, horrixe ekin zion; zeltar hizkuntzaren bidez, jakina, zeren euskararen bidez aritzea **arlotada** iruditu baitzaie zientifiko gehienei oraintsu arte, hala dio berak. Berria - Kultura

---

arlote **1** *iz* bidean eta eskean bizi den pertsona; bizimodu traketseko pertsona; zarpaila, gaizki edo baldreski jantzi eta antolatua den pertsona.

Nik lau seme-alaba hezi ditut eta horietako bat bera ere ez zait ona atera; iraultzaileak, emagalduak, **arloteak**. Lopez de Arana

New Yorkeko kaleetako etxerik gabeko **arlote** bat hil zuen, eta haren gorpua jarri zuen berearen ordez Rocky mendietako amildegi batean behera sutan erori zen auto baten istripuan. Oskar Arana

Zaila egiten zait pertsonen adina kalkulatzea, baina **arlote** hark nahiko zaharra zirudien. Jon Arretxe

Arlote bihurtu eta kalean bizitzen ohitzea hasieran zein gogorra egin zitzaion kontatu zidan. Jon Arretxe

Arlote batek, lapur batek, sartu behar ziria, zeini eta kapare bati, oinetxe baten oinordeko aberatsari! Koro Navarro

Herri xehea makilaka urrundu behar izaten delako, edo **arlote**, eskale eta pikaroei egurra ematen zaielako, ez da pentsatu behar Txinan ez dela elkar babesteko legerik, eta legeok ederto gobernatzeko bidea ematen ez dutenik. Juan Martin Elexpuru

Aurreko liburuetan bezala, baztertuak, zapalduak, munduak ahaztu dituenak hartzen ditu aintzat: etorkinak, prostitutak, **arloteak**, heroinazaleak, boxeolariak. Berria - Kultura

Ikusten duzunez, Donostiako jende zibilizatuaren iragarpenak gorabehera, lortu dut ostatu hartzea Pasaiako **arloteen** artean. Koldo Izagirre

2 (izenondoekin)

Arlote jator bat zen, istorio, asmakizun eta bertso irrigarri ugariz armatua. Irene Aldasoro

Eta, hortaz, esan agur gure **arlote** txiki ohiari, Tom. Oskar Arana

Haren aldamenean, patuak haraino bultzaturiko **arlote** gizagaixo batzuk zeuden, eguzkiak noiz berotuko zain. Karlos Zabala

Orduan, nik galdetzen dut ea Titoren esklabo baten, Judeako **arlote** berritsu baten erlijioa komeni zaion onbideratu berri den nazio libre eta gudariari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beste pertsonaia arraroenetako bat **arlote** txirularia zen. Jon Arretxe

Ni, aldiz, **arlote** alfer lohi-zaku hau, hor nabil lelo-lelo, Peru Amets halako, neure eginbeharrerako nagi, eta ez naiz gai deus esateko. Juan Garzia

Zergatik sufritzen du horrela kanka jotzea buruan **arlote** trauskil honek pala zikin batekin, eta ez dio jartzen salaketarik eraso-kalteez? Juan Garzia

Raskolnikek eta denetariko **arloteek** burua berotzen diete, boterearen kontra jartzen dituzte, boterearen eta ordenaren kontra, eta jendea aise matxinatzen da zapaldurik dagoenean. Jose Morales

Anaiak, gogoz kontra bazen ere, **arlote**, doilor, ezjakin eta ezdeus deitzen zionean, berak, bihotzez eta aurpegiz pozik, erantzuten zion: [...]. Askoren artean

3 (izenondo gisa)

Mutil **arlote** bat, eskuan otarrain bizi bati eusten, eta berau mugitzen ari. Joxe Austin Arrieta

Ernst Gombrich-en liburuko ilustrazioan ikusten denez, agure **arlote** samar bat bezala aurkezten du Mateo, hankak hautsez beteta dituela eta idazteko aingeruaren laguntza behar duela. Bernardo Atxaga

Aspaldikoa da euskararen (hizkuntza ezdeus barbaroa) eta euskaldunaren erdeinua: menditar tontoa dela, **arlotea**, ezjakina, inkultoa, Tubal eta ideologia barregarrien sinestuna, etab., etab. Joxe Azurmendi

Frogatu beharko litzateke alferkerian bizi den gizon **arlote** koipetsua hain zerbitzu premiazkoa egiten duen zaldia baino mesedegarriagoa dela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Amak erran zion harekin harremanik ez ukaiteko, ez zela gomendagarria, bastart **arlote** bat zela eta haren aita auzo batekin etzaten zen gizon mozkortia zela. Elena Touyarou

Geldi hadi hor, Jainkoaren pregoilari **arlote** hori! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Burdinak eramatearen xarma **arlotea** uzten diet, naturak inori ipintzeko eskubidea eman dienean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gisa **arlote** eta behartsuan ezagutu zuen lagun hura Londresko prentsako izar distiratsu bihurtu zen. Irene Aldasoro

Pilda xaretuak lepoan, aurpegia begi huts, bizar **arlotea arloteago** bihurtua Tomasek zekarkigun egunkariko argazki puntudunak, han ageri zen gizotsoa bata zurian. Koldo Izagirre

Lekukoak, gehienetan, herriko jende **arloteena** izaten dira, epaileak berak nahi duen guztia esanarazi ahal diena. Juan Martin Elexpuru

Gure arteko askok eta askok mintzamolde **arlote** eta alprojarekin berdintzen dituzte euskalkiak, eta horrexegatik gutxiesten eta gaitzesten dituzte. Koldo Zuazo

Itxura **arlote** xamarra zuen. Ander Irizar

Egin dezagun galdera ezina izangai bihurtzen duen beste era xume, **arlote** eta zientifiko honetan: zer da fotoia? Iñaki Segurola

Bestela jakingo lukete, esaterako, bertsolaritza arlotekeriatzat jotzea baino arlotekeria **arloteagorik** ez dagoela. Joxerra Garzia

Andresi iruditzen zitzaion ikusten ari zela Madrilen jende aberatsak, geroz eta ederragotuz, indartuz, kasta bihurtzeko zeraman bilakaera; bien bitartean herriaren bilakaera alderantziz gertatzen zen, ahulagotuz, geroz eta **arloteago** bihurtuz. Josu Zabaleta

4 (adizlagun gisa)

Ahaztu Europan **arlote** ibili zeneko urteak. Oskar Arana

Nire paraderoa ere halakoxea izaki; izerditua eta hautseztatua, legar-gurdiko nekazari hura bezalatsu, oinak ere galipotez zikinduak, eta zer esanik ez nire alkandora: zeharo **arlote** nengoen, oinutsik eta jakarik gabe. Joxe Austin Arrieta

Ibinagabeitiak Parisen ezagutu zituen gerra ondoko gazte existentzialistak bere esanetan, **arlote** jantzita ibiltzen ziren Saint Germain des Pres inguruan. Berria - Harian

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aitak esaten zuen semeak **arlote** karrera egin beharrean jaun karrera egingo zuela **Arlote** koadrilaren arrastorik ez zen ageri, ordea, ez han ez arkupeetan. Pello Lizarralde

Amak beren haur-kotxearekin; inoiz huts egiten ez duen **arlote**-hirukotea, beren bankuan jarria; turista ile-hori bikote bat metro-sarrerari begira. Jon Muñoz

Arlote itxurako gizon bat sartu da La Torreko seigarren komisarian, Salvador parketik hurbilen dagoena. Aritz Gorrotxategi

6 irud/hed

Kilker olerkari **arlotea**, itzaletik eguzkitara begira lurrezko gaztelu zaharraren atean, kantari ari da. Patziku Perurena

Adarra jotzeko inoiz kantatu dioten bertso zahar **arlote** bat darabil buruan: "Demoniozko hiri demonio hartan, demoniozko ikuskizuna kale demonioetan; demonioak hemen, demonioak han, demonioak saldoan mundutikan bueltan; demonioak bildurik demonioen salan". Anjel Lertxundi

Harro zegoen, oker ustean bertakotzat jotako paseko ibiltariaren harrokeriaz, ondotxo ezagutzen zituelako jatetxe berriak, kareharri gorrikaraz egindako eraikin **arloteen** etxabeetan kokaturiko haiek. Mirentxu Larrañaga

Txokolatea eta galleta batzuk erosi genituen, eta arreta osoa haiek jateari emanda ibili ginen arrantzale-familiak bizi ziren kale **arloteetan** barrena. Irene Aldasoro

Holakoxe itxura erkin, txatxar, tautologiko edo **arlote** pobrea hartu ohi du Egiak; ustez diren eta ez diren gezurrak urratzeko asmatua izan delarik, bera da bihurtzen gezur handiena eta gezur garailea. Iñaki Segurola

Azkenean, Refreshment Bar hitzak letra zuriz idatzita zeuzkan taberna **arlote**-itxurako baten erakusleihoaren aurrean gelditu zen. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arlote bat (8); **arlote baten** (4); **arlote hori** (3); **arlote itxurako** (3); **baina arlote** (3)
arlotea bai (3); **arlotea ez** (3); **bigarren arlotea** (14); **lehen arlotea bada** (3)

---

arlotekeria *iz* arloteari dagokion egintza gaitzesgarria; arlotearen jokaera edo egoera, gaitzesgarritzat hartua.

Euskal Herrian, ostera, batasun eza, anabasa galanta eta, azken baten, **arlotekeria** eta zentzugabekeria ikusten da sarri. Koldo Zuazo

Algaraka eta elkarri mokoka jarraitu zuten pixka batean, **arlotekerian** erori gabe, halere. Pedro Alberdi

Bestela jakingo lukete, esaterako, bertsolaritza **arlotekeriatzat** jotzea baino **arlotekeria** arloteagorik ez dagoela. Joxerra Garzia

Arlotekeria da norberari egokitu zaion bizi-ingurua taxuz adierazten ez jakitea. Berria - Kultura

---

arloteria *iz* arlotekeria.

Monumentaltasuna **arloteriari** josi zaio. Koldo Izagirre

Arloteria gorrian bizi da, dena dela. Gotzon Garate

Amsterdameko portuan eta bertze portu batzuetan ezagutu nituèn pikaro haiek guztiak bezala, gehienak ere jokorat eta jan-edanerat emanak, alferkeriarat eta **arloteriarat**, errietarat eta liskarretarat, edo sal-erosi nahasietarat eta bertze mila tratu gaixtotarat. Joan Mari Irigoien

---

arlotetu *izond* arlote bihurtua.

Populu bakarra izanen gara geu mundu guztian, hain **arlotetua** eta hain arditua. Hasier Etxeberria

---

arlotetxo *iz adkor* arlotea.

Zenbait ongintza-elkartetako presidente eta beste batzuetako partaide zen, hainbat emakume elkartu eta hilero izaten zituen aholku-batzarrak, solasaldiak eta komite-bilerak bere etxean, eta ohitura zeukan bere paseo bakoitzetik etxera ekartzeko **arlotetxoak** nahiz ume eskekoak, haiek lehenbizi kikiltzeko garbiketa sakon batekin, eta ondoren erdi goxatzeko, kafe, fruta eta opilekin. Anton Garikano

---

arma *(ETCn **45.042** agerraldi)* **1** *iz* etsaiei erasotzeko eta haiengandik begiratzeko zernahi tresna. ik**iskilu**.

Izpirituak, haatik, ez dira **armaz** garaitzen, Maitasunez eta Bihotz-zabaltasunez baizik. Piarres Xarriton

Sarrerako eskailera-mailaren goian, ezker-eskuin, guardia pare bat, militar posturan, beren **armekin**. Anjel Lertxundi

Eta aita ezin arraiago zegoen, eta nik, hamaika urteko umea nintzelarik, ez nuen ulertzen nola bakea sinatu ondoren egin zitezkeen **armak**. Joan Mari Irigoien

Nahiz eta, onartu behar, **armak** eta ezkutuak forjatzeko zuen iaiotasuna ere ondo ospetsua zela. Joanes Urkixo

Armak behar genituen, eta hegazkinak. Edorta Jimenez

Alemanek berehala xutiarazten zituzten **armaren** puntaz izterrak xixtatuz. Eneko Bidegain

Bakoitzak bere **armak** aukeratu behar ditu gure lurraldearen, gure herriaren eta gure erlijioaren alde borroka egiteko! Josu Zabaleta

Iraken geratzen dira haatik, **arma** hauen bilatze lanetan jarduten duten beste 1.000 ikuskatzaile. Berria - Mundua

Gainera, **arma**, ganbelu eta zaldi franko dituzte; oraindik ere Darfurren barrena mugitzeko modurik errazenak, azken horiek. Berria - Mundua

Akordio horrek soldaduak **armekin** entrenatzea baimentzen du, baina **armak** izatea debekatzen. Berria - Mundua

Armaren kanoian ipintzeko? Sonia Gonzalez

Atzetik ditin txakurrak, agian; **armak**, segur aski; eta hortz goroldiotsuak, zalantzarik gabe. Anton Garikano

Menditarrak prest zeuden **armak** hartu eta erregearen arrasto guztiak errotik kentzeko, haren jarraitzaileak larrutzeko. Felipe Juaristi

Menperatzaileen **armarik** eraginkorrena sotiltasuna da, zehaztasuna, eta neurria. Lander Garro

Aipa dezagun bide batez sentimendu horri esker sortzen dela herri primitiboetan hizkuntza aztura gisa hartzea, hizkuntza, jantzien edota **armen** ohituraren antzekoa bailitzan. Isabel Arrigain

-Zaldiak eta **armak** - esan zuen -. Mirentxu Larrañaga

Nire inguruan, gainera, **armekin** ibilitako jende asko zegoen: osaba Juan, Angel nire aita, Teresaren eta Martinen aita, ehunka pertsona. Bernardo Atxaga

Ez zen seguru asko **armarik** gordeko aldarean, baina batek baino gehiagok emango zuen han gaua, guardia zibilak etxera bila azalduta, beste aldera pasatzeko modua aurkitu artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Teniente bat eta bi soldadu zetozkion, soldaduak beren mauserrarekin eta tenientea pistola batekin, hiru **armak** gure aitagana zuzendurik. Joan Mari Irigoien

Begietako batean ikusmena urriturik zuela eta, medikuek **armez** su egiteko gaitasunik ez zuela esan zioten arren, Gurutze Gorriaren gerra-anbulantzietan lan egitera etortzea erdietsi zuen. Edorta Jimenez

Karlistak hasita daude berriro **armak** biltzen, badakizu, eta ez da hain gauza erraza muga igarotzea. Anjel Lertxundi

Konortea itzuli zaidanean, bota beltzak, uniforme berdeak eta **armen** kanoi puntak ikusi ditut. Joseba Sarrionandia

Nahiago luke tronpeta, ez baitzaio esku artean lehertuko; baina beti entzun izan du bere adineko mutiko batek ezin duela serioski jolastu ez bada **armekin**, ezpatekin, gerra-tresnekin. Itziar Otegi

Noaingo desastrearen albisteak kulebrina batekin harrapatu zuen Migel, suzko **armen** misterioen lehen eskolan. Aingeru Epaltza

Bestelako **armak** saltzen ziren martxanteretan, ez eskuz egindako gureen modukoak, baizik eta fabrikakoak, benetakoen moduko pistolak ere bai, Frantziatik eta Alemaniatik ekarriak, metalezkoak eta ilunak. Joseba Sarrionandia

Karlisten gerlako garrasiak eta **armen** arrabotsak ahantziak dituzke zubiak, eta hemen jadanik zabal eta nasai dagoen Arga ibaiak ere. Piarres Aintziart

"**Armak** saldu omen dizkie poloniar matxinoei", erantsi du laugarren batek. Felipe Juaristi

Bi multzo nagusitan banatu litezke **armak**: batetik, erasotzeko direnak; bestetik, berriz, babesteko direnak. Imanol Zurutuza

Bi aldiz eragin zion katuari eta **armak** plop-plop egin zuen. Aitor Arana

Orain Benedettik bat egingo du Donostian ETAri **armak** uzteko eskatuko dion jendetzarekin. Agurtzane Juanena

Eta irten nintzenean, nahiz eta inguratzen ninduen gizartearekin batere ados ez egon, hala ere ez nian oso garbi ikusten **armak** berriro hartzeko prest ote nengoen. Mikel Hernandez Abaitua

Harritu ninduen beste gauza bat: adin txikikoek pistola eta **armei** buruz zenbat zekiten. Pako Aristi

Odolezko eta ohaidetzazko eskubideak aldarrikatuz, Lisboa **armen** indarrez menderatu behar izan zuen eta artean gerlako errautsen arrastoa ez zen han guztiz iraungia. Edorta Jimenez

2 irud/hed

Hemen proposatzen zaizkien etxeko lanak txukun eginez gero, pentsamendu filosofikoak exigitzen duen zorroztasuna bereganatzeko **armak** eskura edukiko dituzte ikasle horiek. Askoren artean

Ez ziur ez nagoelako garaipenarekin ezta seguru ere nire **armekin**, baizik eta iruditu zaidalako, oraingoz behintzat, hori dela funtsezkoa: hots, pentsamenduaren historia bere lotura transzendentalaz askatzea. Xabier Arregi

Pentsatu nuen Lajosek helburu garai eta ilun samarren batek bultzatuta uko egin ziola bere gaitasunak lantzeari, borrokan jarraitzearren -gizadi osoaren izenean, ziur asko- ez jada zientziaren **armekin** baizik eta errealitatearenekin. Ander Irizar

Pattar merkea eta solasa zenituzten Neutlingeneko hotz dorpearen aurkako **armak**. Xabier Montoia

Zeren doktoreak, berak bakarrik, ez baitzuen ezjakintasunaren hidra azpiratzeko behar zen **armarik**. Josu Zabaleta

Horrela hasten ziren sesioan, gizona arrazoi zorrotzen **armarekin** eta andrea bere suminarenarekin huts-hutsik; eta bataren eta bestearen arrazoi eta desarrazoiak ezin askatuzko katramilan nahastekatzen ziren. Fernando Rey

Bake **armarik** zorrotzena dudalako eskuetan, liburuena, alegia... Pello Zabala

3 (izenondoekin)

Bai, bere hezurrekin egin ditu gizonak, **arma** sakratuak eta xirula miragarriak. Patziku Perurena

Horixe zuen Roosevelt presidenteak eta haren taldeak **arma** nagusia orain beraren aurka borrokatzeko. Harkaitz Cano

Horrek ez du esan nahi, hala ere, batak baino besteak abantaila gehiago duenik, bai ordea **arma** diferenteak dituztela ehizaldirako batak eta besteak: eskopeta zein erreklamoa, sarea nahiz zepoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Arma estrategikoa ere bihurtu dute. Txema Ramirez de la Piscina

Gogoratu primatearen sekuentzia, primateak hezurra hartu eta tresna bihurtzen dela bere eskuan, **arma** hiltzailea bihurtzen dela gero eta, airera jaurtirik jirabiran, espaziontzia bihurtzen dela. Joseba Sarrionandia

Nahiz eta gehiago izan eta **arma** hobeak eduki, ezin zuten bailara hau mendean hartu, mendiotan bertakoak garaiezinak zirelako. Martin Anso

Denon etxea den lurra inarrosi egin da: **arma** termonuklearrak lehergailu atomikoaren ordezkoak dira. Felipe Juaristi

Aurrena zetorrena luzea zen eta laurok **arma** bikainak zituzten. Gotzon Garate

Zuk noiz ikusi duzu, orain arte banpiroei buruz idatzi diren mila istorioetan, inork erraketa bat erabiltzea **arma** hilgarri gisa? Jon Arretxe

Oso ondo daki eskandalua **arma** indartsua dela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Dena den, Ebak berekin zuen oraindik berebiziko **arma** sexuala: ezpain haragitsuak, ezpain gorrail apetagarriak karmin leunaren ukitu basatiaz hornituta. Aritz Gorrotxategi

Antzina-antzina, gezi, lantza eta ezpatak ziren gerrarako **arma** agerikoak, eta borroka aurrez aurre egiten zen, oinez edo zaldiz; geroago, fusil, kanoi, metraileta eta tankeak erabili ziren **arma** agerikotzat. Joxerra Garzia

Erlijioaren defendatzaileok Aristotelesen filosofia ikertzeak beren eskuetan ipini zizkien **arma** dialektikoez baliatu ziren. Xabier Kintana

Izan ere, bere borroka-leku bakarra Teologia eta Psikologia hutsaren alorrean bilatu ahal izango litzake: lur honek, ordea, ezin du eutsi bere hornidura osoa eta **arma** beldurgarriak dituen borrokalaririk. Ibon Uribarri

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aljeria hegoaldean ibilia zenak ez zuen gauza handirik kontatzeko, salbu ziblaz tronpaturik, adiskidez osatu frantses **arma**-saldoak bizkarrean mitrailatu zuela eta geroztik aulki ibiltarian mugitzen zela. Itxaro Borda

Arma museoaren aurreko parkean zuen orduko zita. Xabier Mendiguren Elizegi

Arma-gizon aldra bat ekarrarazi zen mendia inguratzeko. Juan Garzia

Handik berrogei bat metrora, bera ibiltzen ari zen espaloian aurreraxeago, Stein **arma**-fabrika zaintzeaz arduratzen zen polizia-taldea txanda-aldaketa egitera zihoan. Pedro Alberdi

Oso grabea duk gero **arma** zerbitzua horrela uztea. Iñaki Iñurrieta

Zaldunen artean, Lancelot Aintzirakoa zen trebeetan trebe, **arma**-jokoan gailen. Juan Kruz Igerabide

"Niña" izeneko goleta txiki bateko kapitain gisa, batik bat Gerra Handiko alemaniar metrailadorez osatutako **arma** karga zeraman Rotterdameko portutik. Iban Zaldua

Rubeni Tomen pistolarena kontatua nion eta honek, zeharka, EEBBetako **arma** kontuak ekarri ditu hizpidera. Patxi Zubizarreta

Atzo Blairrek diputatuei esan zien txostenaren ondorioak «onartu» egiten dituela eta litekeena zela gerra hasi zenean Irakek suntsipen handiko **arma** biltegirik ez izatea. Berria - Mundua

Segurtasun Kontseiluak aho batez ebatzi du **arma** bahimendua ezartzea. Berria - Mundua

Ikerketa berria, beraz, David Kay AEBen **arma** ikuskatzaileak helarazitako txostenarekin bat dator "okertu" egin zirela iragarri ondoren dimisioa eman zuen Kayk iragan urtarrilean. Berria - Mundua

Kuraiaz beterik ene soldadoek, sei, zazpi metra barna inguruan den arroila pasatzen dute eta azkartua zen sartzea beren **arma** giderraz bortxatzen dute, oihu batekin elgar sustatuz. Michel Oronoz

Nik hogeitabat urte neuzkan orduan eta 75eko kalibreko fusilarekin egiten nuen **arma**-erakustea. Koldo Biguri

Hark men egin dio eta, erregeak agiraka eginik, hondarreko orobat zin egin, bere osabaren aurrean, ez diola sekula gehiago **arma**-bidean ekingo berorren maiestatearen aurka. Juan Garzia

Esate baterako, **arma** produkzioan gertatutako gorakada izan daiteke, edo eskolen eraikuntzari edo sendagai produkzioari esker izandako gorakadak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Itsasontziz eraman gintuzten oraintsu arte armada sobietarraren kontrol eta **arma** gunea izandako leku batera. Edorta Jimenez

5 ***arma arin***

Arrasateko Bergaretxek, esate baterako, txirrika bidezko sistema baten berri eman zigun tentsio altuko kableetan erabiltzeko, eta nik, noizean behin, **arma arinek** nola funtzionatzen zuten azaltzen nuen arbel batean. Rafa Egiguren

"Baina, ez pentsa, **arma arinagoak** ere badira hemen", esan zidan. Bernardo Atxaga

AI Amnesty International eta Greenpeace erakundeen arabera, 2003. urteko otsaila eta iragan urtarrila bitartean, Espainiak **arma arinak** eta munizioak saldu zizkion Khartumi salmenta 8.000 eurokoa izan zen. Berria - Mundua

Bagdadeko iturri batek adierazi zuen ekintzaileek AEBetako marine-ei mortero eta **arma arinekin** egin zietela eraso. Berria - Mundua

6 ***arma astun***

Merkatari-aireko haiek, berriz, ontziko **arma astunak**, kanoiak-eta, erosi egin nahiko lituzketela diote. Edorta Jimenez

Borroka partikularretan aldezkariak beren pieza guztiez armatuta zeudenez, eta sendotasun eta indar jakin bateko **arma astunek**, hala defentsarako nola erasorako, egundoko abantaila ematen zutenez, jende askori sartuko zitzaion buruan borrokalari batzuen arma sorginduen iritzia. Iñaki Iñurrieta

Izan ere, okupatzaileei aurre egiten dabiltzan ekintzaile irakiarrek hiri honetan musulman sunitak dira nagusi beren **arma astunak** entregatzeko exijitu diete AEBek, hiriko agintariekin egindako negoziazioetan horixe hitzartuta. Berria - Mundua

Efe agentziaren arabera, Polizia bertara ailegatu zenean "tiroen aztarnak, **arma astunen** bala zorroak eta granada-jaurtigailuak» aurkitu zituen. Berria - Euskal Herria

7 ***arma atomiko***

Horretan Mendebaldeko europar herriek zer esanik izan gabe, errusiarren **arma atomikoak** buru gainera ekarriko ote zizkien. Iñaki Mendiguren

Eta, egia erran, II. Mundu Gerla **arma atomiko** berriei esker irabazi berri zelarik eta indar militar beldurgarri horien orekari zor omen geniolarik botereen arteko bakea, nehor gutik zuen indarkeriaren bidea garbiki gaitzesten. Piarres Xarriton

- **Arma atomikoak** erabiliz egingo al dugu gerra? -galdetuko du norbaitek. Xabier Mendiguren Elizegi

Izan ere, AEBen eta Europako Batasunaren ustez, ikerketa horrekin **arma atomikoak** egitea du helburu Iranek, eta aldiz, herrialde horren arabera, uranio abestuak erabilera zibila soilik izango luke. Berria - Harian

Izan ere, Iranek programa nuklearrak xede zibilak baino ez dituela dioen arren, AEBek uste dute **arma atomikoak** sortu nahian dabilela. Berria - Ekonomia

EB Europako Batasunak eta AEB Ameriketako Estatu Batuek zentrifugagailu horiek **arma atomikoak** egiteko baliatuko diren susmoa dute. Berria - Mundua

8 ***arma automatiko***

Arma automatikoetakoren batek doiegi tirokatzen zidala iruditzen zitzaidanean, haren gainera jotzen nuen, albait lasterren, lur arrasean, eta metrailadore turrusta bat botatzen nion. Josu Zabaleta

Bi buruzagien jarraitzaileak elkarri tiroka ibili ziren **arma automatikoekin**. Berria - Mundua

Akusazioa: talde islamiko batekoa izatea eta etxean **arma automatikoak** eta granada jaurtigailuak edukitzea. Berria - Mundua

Soldadu batzuek irekita zituzten kiloko kontserbalata batzuk, eta mahukak goratuak, eta labanekin haragipuskak ziztatu eta jan egiten zituzten, beste batzuek, **arma automatikoak** belaunen gainean. Fernando Rey

Hauez gain artilleriako beste 35 lehergaik jo zuten hormetan, Abrams gerra-gurdiek beste hamar bonba sartu zituzten, eta hauen atzetik soldaduek 30.000 inguru tiro jaurti zituzten **arma automatikoekin**. Pako Aristi

Erfürt-eko aldean Aliatuen kanoiak ikusten ahal ditugu eta hurbilago **arma automatikoak**. Michel Oronoz

9 *arma bakteriologiko* *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Arma biologikoa - **arma bakteriologikoa** ere deitua- pertsonak, animaliak edo uztak kaltetzen dituen bizidun patogenoz edo beren toxinez osatutako materiala da, arlo militarrean erabil daitekeena, etsaia kaltetzekotan. ETC-entziklopedia

Arma bakteriologikoen akordioa sinatzeari uko egin dio Washingtonek. ETC-prentsa

Arma bakteriologikoak ugaritzeko arriskua asko handitu da EEBBek Genevan harturiko erabakiaren ondoren. ETC-prentsa

Haatik, zehaztu zuen ez zutela zantzurik ediren gune hartan **arma bakteriologiko** edo kimikoak fabrikatzen zirela nabarmendu zezakeenik. ETC-prentsa

1.441 ebazpenak eskubidea ematen die, halaber, **arma bakteriologiko**, kimiko eta nuklearretan trebatutako ikertzaile irakiarren galdezkatzeko, agintari politikoen baimenik gabe, lagun hauek halabeharrez Iraketik kanpo eramanda. ETC-prentsa

Argazkiei dagokienez, **arma bakteriologiko** eta kimikoak fabrikatzeko ustezko laborategi mugikorrak erakuts litzakete, eta grabazioak lirateke, berriz, irakiar goi agintari zenbaiten arteko solasaldienak. ETC-prentsa

Defentsa Departamentuak **arma bakteriologikoak** egiteko osagaiak saltzen ditu bere web orrian. ETC-prentsa

Hau eta beste zenbait gauza direla eta 1925ean Genevan izandako bilera baten ondorio bezala protokolo bat onartu zen, non, besteak beste, gas horien erabilera nahiz **arma bakteriologikoak** debekatzen ziren. ETC-prentsa

10 *arma biologiko*

Jaun hori zen kargatua Irakian Saddam Husseinek **arma biologikoak** bazituen ala ez jakiteko. Herria

Bertan, Millerek zientzialari irakiar baten lekukotza jasoz -izena aipatu gabe- Irakek **arma biologikoak** zituela berresten zuen, baina Irakeko Gobernuak inbasioa hasi baino lehen suntsitu zituela gaineratzen zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Arma biologikoa aurpegira hustu nion, eta hustutakoan kristoren kaskarrekoa eman baldearekin. Joxean Sagaztizabal

Rockinghamek bazekien Iraken ziurrenik ez zela **arma biologiko**, kimiko edo nuklearrik, baina hori ez zuen kontuan hartu. Berria - Mundua

Irakiarrek birusaren laginak izan zitzaketela eta **arma biologiko** gisan erabiltzeko arriskua zegoela esanez, txertaketa-kanpainak jarri zituen martxan. Berria - Gaiak

11 *arma denda*

21 errebolber eta pistola bat lapurtu dituzte Bilboko **arma denda** batetik. Berria - Euskal Herria

Haren atezaina, Léonce andrea, hainbeste izutzen zuen arma hura oso errebolber handia zen; Parisko **arma dendarik** onenean erosi zuen, modu arras misteriotsuak antzeztuz. Karlos Zabala

12 *arma eramangarri* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Museoan ikus daitezkeenak, batez ere, suzko **arma eramangarriak** dira, XVI. mendetik XX. mendera bitartekoak. ETC-prentsa

Bonbarda, gaur egun, suzko **arma eramangarririk** antzinakoena bezala hartzen dena, kanoiaren aurrekari izango zen artilleriako pieza primitibo bat izan zen. ETC-entziklopedia

13 *arma erdiautomatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Kargadorean bi kartutxo edo gehiago eduki ditzaketen **arma erdiautomatiko** edo automatikoak, isilgailua edo gauez tiro egiteko bisorea duten armak eta substantzia moteltzaileak injektatzeko jaurtigaiak jaurtitzen dituzten armak baimenik gabe eduki edo erabiltzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina **arma erdiautomatikoa** bada, AK-47 mota batzuk bezala, bisera bat erostea bezain sinplea da: ispiluan begiratu, eta, ondo ematen badizu, zuretzat. ETC-prentsa

Suitzan indarrean den derrigorrezko soldadutzaren ondorioz, ehunka mila **arma erdiautomatiko** daude herritarren eskuetan. ETC-prentsa

Tanketek eta poliziek beren **arma erdiautomatikoz** destatzen dute jendea, ezbairik gabe, baldin eta geratu artean behar baino gehiagoan luzatzen badira. ETC-prentsa

Poliziaren arabera, egileak bi gailu zituen bere **arma erdiautomatikoan**, arma automatiko baten moduan tiro egiteko. ETC-prentsa

14 *arma hartu*

Makurtu egin nintzen erreflexu hutsez, eta **arma hartzen** saiatu. Bernardo Atxaga

Urak hartzera etorritako Madrilgo militar haietarikoren baten emaztea ikusi zuen ohe-mahaiko kaxoitik senarraren **arma hartzen**. Koldo Izagirre

Arma hartu, gezi bat baino bizkorrago irten, eta baratzean zehar lasterka joan nintzen muinoetaraino. Juan Kruz Igerabide

Bahitzaileek esan zutenez, ofizial hark aurre egin zien, **arma hartuta**, eta horregatik hil zuten. Berria - Kultura

Ilusioa, ametsak eta irudimena iraultzarako **arma hartuta**, hutsik eta usteltzen dauden etxeei bizia ematen jarraitzearen alde datorren larunbateko manifestazioan parte hartzeko dei egiten dugu. Berria - Euskal Herria

15 *arma-hartze*

Horrela sortzen da nobela osoan zehar aurki dezakegun gaizkiulerturik bitxiena, berez, **arma-hartze** horrek ez baitzuen ezertarako balio. Patxi Ezkiaga

16 *arma hiltzaile*

Gogoratu primatearen sekuentzia, primateak hezurra hartu eta tresna bihurtzen dela bere eskuan, **arma hiltzailea** bihurtzen dela gero eta, airera jaurtirik jirabiran, espaziontzia bihurtzen dela. Joseba Sarrionandia

Adi-adi begiratzen zion, hark beroki azpian zeukan **arma hiltzailean** pentsatuz. Anton Garikano

17 *arma kimiko*

3.300 **arma kimiko** eta hainbat instalazio suntsitzeari ekin diote. Berria - Mundua

Powellen ustez, Irakek "ez ditu, ziurrenera, suntsipen handiko **arma kimiko** eta biologikorik». Berria - Mundua

Arma kimiko eta bakteriologikoekin esperimentuak egiteko baliatu zituzten ere txinatarrak. Berria - Harian

Gerora jakin zen Iraken **arma kimikoen** gezurrarekin sartu ziren hegazkinek fosforo zuria eta MK77a erabili zutela erasoetan. Iñigo Aranbarri

GKE batzuk oso teknifikatuak daude, Oxfam bezalako bat **arma kimikoetan** esaterako, eta teknifikazio hori ezinezkoa litzateke zientzialari eta teknikarien laguntzarik gabe. Pello Salaburu

Haren emazte Djila-ren gurasoak **arma kimikoen** bidezko eraso batean hil zituzten, Anfal garaian, kurduak suntsitzeko kanpainan alegia (1987-1988). Juan Kruz Igerabide

18 *arma konbentzional*

Anartean, **arma konbentzionalekin** soilik Israelek gogor eraso egiten dio erresistentzia palestinarrari. Berria - Mundua

19 *arma-maisu* *(corpusean ez dago; ETCn **47** agerraldi)*

Gero aritu zitzaigun kontatzen **arma-maisua** makila luze batekin hor etortzen zela, eta atzera egin, eta gizajoari atzealde alua astintzen hasten zitzaiola, harik eta meila murder marruka jarri arte. ETC-literatura, saiakera

Bouté **arma-maisu** ezaguna, gaurko eguna gurekin egiteko asmoz. ETC-literatura, saiakera

John Claggart zen hau, **arma maisua**. ETC-literatura, saiakera

Estiloari buruz, Darth Maul Sith Duelistatzat hartzen dela esan behar da, Jedi **Arma Maisuaren** baliokidea (maila hauek soilik antzinako garaietan ematen dira, Antzinako Errepublikako zaldunen garaietan). ETC-entziklopedia

Floretetan aditua, Maître Leblond eta Rolland Boitelle **arma-maisu** zituen. ETC-entziklopedia

20 *arma nuklear*

Aukeratu egin behar dugu: edo **arma nuklearren** erabateko debekua, edo gizakion deuseztapena. Fernando Morillo

Arma nuklearrak egiteko asmoak utziko ditu Piongiangek. Berria - Mundua

Teheran bere asmo nuklearrekin munduari desafio egiten ari dela eta nazioarteak ez lukeela **arma nuklearrak** garatzea baimendu behar adierazi zuen. Berria - Mundua

Eta demagun, **arma nuklear** gaberikako gerla garbia baizik ez baledi balia ere, Irakeko diktadorearen aurkako gerla horretan, gerla-bide hori hartu duelakotz Estatu Batuetako lehendakariak Nazio Batuen Erakundearen baimenik gabe. Piarres Xarriton

Beren lankide biologoek ez bezala, haiek bazuten, **arma nuklearrak** zirela eta, bidaiatzeko eta atzerriko elkarretaratzeetan parte hartzeko aukera. Juan Garzia

Guri begira daude une honetan milaka eta milaka **arma nuklear**, une batean lurra desegin dezaketenak. Pello Salaburu

21 *arma patio*

Eta malko erretan gainez egindako amorruak bultzata, **arma patioko** harrietan marinel hordituen antzo zabuka aireratu ahal izan dugu, asmoa gure esku, Vladimir. Koldo Izagirre

22 *arma plaza*

Banekien zein zen zigorra, guk guztiok genekien: bost bira, **arma-plazan** lasterka, fusilari buruaren gaindik gora eutsita. Mirentxu Larrañaga

Museoan, halanbe, ez da historia ageri: **Arma Plazan** kokaturiko geletan uniformeak artilleria tresnak fusilak berunezko soldadutxoak daude ikusgarri turistarendako, txukun, ziegak izan zireneko aztarren barik. Koldo Izagirre

23 *arma zorrotz*

Nire soldaduek, ohi denez, neronen kontra jotzen dute lehenbizi, beren **arma zorrotzak** erakutsiz. Pedro Alberdi

24 *arma zuri*

Arma zuri garbiekiko hartan, garbi-garbi egiteko ustea bazuen txolarteren batean, katazuriaren larrua baino zuriago utzi arte. Patxi Ezkiaga

Poliziaren arabera, **arma zuri** luze samarra da, baina ez du zehaztu zein izan daitekeen. Berria - Euskal Herria

Polizia agertu gabe zegoen oraino, baina hura ere -Potzolo bera, beharbada- ez zen luzatuko, medikuek Josuren zauriak **arma zuriak** eginak zirela frogatu bezain sarri. Aingeru Epaltza

Poliziaren kalkuluen arabera, bi mila gaztetxo izango ziren, ehun bat taldetan antolatuak, hiri osoa txikitzeko gai izan zirenak, makilaz eta harriz eta **arma zuriz** hornituak. Karlos Linazasoro

Eta, **arma zuriarekin** mehatxatzen zuela, oihu egin zion. Joan Mari Irigoien

Poliziaren kalkuluen arabera, bi mila gaztetxo izango ziren, ehun bat taldetan antolatuak, hiri osoa txikitzeko gai izan zirenak, makilaz eta harriz eta **arma zuriz** hornituak. Berria - Kultura

Mikel Strogoffen atzean paratu zen, xafla zabaleko sable kako bat eskuan, **arma zuri** damaskinatu horietako bat, Karxiko eta Hissarreko armagin entzute handikoek gogor-malgutua. Karlos Zabala

Justu zekien bonbardaketak ez zuela Elgetan hildakorik eragin, eta hil zirenak, tiroz -eta **arma zuriz** batzuk- hil zirela. Ramon Saizarbitoria

25 *armak aurkeztu*

Eta horri esaten zitzaion Giosuè Carducciri **armak aurkeztea**. Pello Lizarralde

Kexu zeuden eskolara etorri eta beti denak ikusi behar kirtena galtzetatik ateratzen Giosuè Carducciri **armak aurkezteko**. Pello Lizarralde

Hau idatzi aurreko laurehun urteetan jadanik, eliza hori guardian egon da, jarrera oso zurrunean eta zaintza lasaitugabeaz, aitasantutzaren kasketaz eta hierarkiaren bular-babeskiaz astun blindatua, eta etengabe Jainkoari **armak aurkeztuz** liturgia zorrotzaren erritmo errepikakorrean. Iñaki Mendiguren

Urteeran, mikelete piketeak **armak aurkeztu** zituen errege-martxa jotzen zen bitartean eta sei zaldik tiraturiko kotxe girotuan sartu zuten katabuta. Koldo Izagirre

26 *armak hartu*

Edozelan ere, portu eder hura topatu ostean, ez zegoen handik alde egiteko umorean, eta esan zien **armak hartu** beharko zituztela, min egin nahi bazioten. Julen Gabiria

Soaz segitu zituen, urrunean desagertu arte, eta bentan tarrapatan sarturik, gatzez betea zen kutxan gorderik zeuzkan bi **armak hartu**, bere negozioko atea bizpahiru zarrapoz hetsi, eta bideari lotu zen, orgaren errotek utzi hatzei jarraikiz. Elena Touyarou

Eta, nork bere **armak harturik**, dorreetan sua piztu eta gau osoan erne egon ziren. Elizen arteko biblia

ETAk berriro **armak hartuko** balitu, erakundeak eta bere inguruak bere buruaz beste egingo lukete. Berria - Euskal Herria

Frantzia mailan, irakasleen sindikatu batzuek ez dute begi onez hartu neurria, kontuan hartuta Marseillaise-k herritarrei **armak hartzeko** deia egiten diela eta hitzak aski bortitzak direla ikasgeletan sartzeko. Berria - Harian

Menditarrak prest zeuden **armak hartu** eta erregearen arrasto guztiak errotik kentzeko, haren jarraitzaileak larrutzeko. Felipe Juaristi

Ez nuen espero zuk nire herriaren alde **armak hartzea** nire herria delako, justizian sinesten duen gizona zarelako baizik. Ramon Etxezarreta

Edo hori pentsatzen zuten behintzat 60ko urteen bukaeran **armak hartzea** erabaki zuten gazte askok: gerran zeudela Estatu espainolarekin. Bernardo Atxaga

-Baina ez orain **armak hartzeko**; gaur egun beste era batera egin behar da borroka - esan zuen Jontxuk. Xabier Mendiguren Elizegi

Hochtnerrek Papa Hemingway memoria liburuan -, Gerra Zibilak eztanda egin zuenean Bilboko Katedralean zen eta hantxe pulpitura igota eliztarrei **armak hartzeko** eta kaleak betetzeko eta ahal zutenari tiro egiteko han egon beharrean, halaxe agindu zien. Edorta Jimenez

Hilaren 5ean Gonaivesen **armak hartu** zituzten matxinoek gero Haiti Askatu eta Berreraikitzeko Fronte izango zenaren buru izendatu zuten. Berria - Mundua

Espainian sartu ziren eta fama bada, gau hartan berean 40.000 nafartar gaztek **armak hartu** zituztela Francoren alde. Herria

Ez espero izan, ordea, giza iskanbila bat **armak hartuta**! Lurra handia da. Josu Zabaleta

Beste behin makurtzea aurpegi bat berriz ikusteko gogoa zela-eta, eta gero etsipenean erori eta milioi bat zigarro erretzea, edota bestela **armak hartzea** problema sail baten kontra, eta haiei gogor egitea behingoagatik, auskalo nola. Fernando Rey

Gero lapurrei beharrezko **armak hartzeko** eta zahagi banatan sartzeko esan zien. Patxi Zubizarreta

27 *armak utzi*

Tel Avivek uko egin dio talde nazionalista-islamistarekin negoziatzeari, honek Israelen izaera onartu eta **armak utzi** arte. Berria - Mundua

Gainontzekoak, ordea, ekialdera joan ziren ihesi, beste batzuk **armak utzi** eta errukia eskatzen hasi ziren bitartean. Agustin Otsoa

Zer nahi edo behar zuten jakin, eta gero, haren arabera, negoziatu, hitz egin, **armak utz** zitzaten etsiarazi. Karlos Linazasoro

Armak utzi eta bakeak egin zituzten. Juduek izen handia hartu zuten erregearen eta erreinuko jende guztiaren aurrean. Gero, harrapakin ugari berekin zeramatela, Jerusalemera itzuli ziren. Elizen arteko biblia

ERCko presidente Josep Lluis Carod-Rovira "sinetsita» dago ETAk **armak utzi** egingo dituela 2007ko hauteskundeak baino lehen. Berria - Euskal Herria

Lehenik, indarkeria amaitu behar dugu; horregatik eskatu genien PKK Kurdistango Langileen Alderdiari eta Turkiari **armak uzteko** eta hitz egiten hasteko. Berria - Mundua

"1. - **Armak utzi** eta materiala legio italiarren indarrei entregatzea, hauek Santoña erresistentziarik gabe okupatzeko. Jokin Urain

ETA politiko-militarrak **armak utziak** zituen, eta ezkerreko aukera abertzale demokratiko bat bultzatzera deliberatua zen. Juan Kruz Igerabide

Orain Benedettik bat egingo du Donostian ETAri **armak uzteko** eskatuko dion jendetzarekin. Agurtzane Juanena

Laburretan, Sydneyn dataturiko albistea orrialde barrenean: "Timorreko gerrilla independentista batek **armak utzi** ditu". Iñigo Aranbarri

Hau guztia zaldun bertutetsu eta egiazale batek ikusi zuen, Greccioko Joan jaunak, Kristoren maitasunez munduko **armak utzi** eta Jainkoaren zerbitzariarekin familiartasun handiz elkartua egon zenak. Askoren artean

Baina nahasmenduak ez zitezen berriz has, Parisko Barneko ministroak eta Pau-eko prefetak suprefeteri mezu bat igorri zieten, erranez español errefusiatu guziek beharko zituztela lekuak hustu, **armak utzi** ondoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

28 *armetan iragan* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ordura arteko presoekin izandako jokabidea urratu zuen eta barruan bizirik geratu ziren hogeita hamaika defendatzaile errealistak **armetan iragan** zituen, bat bera ere bizirik utzi gabe. ETC-literatura, saiakera

29 *armetan iraganarazi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Egia al da Bisitarien Zerbitzuan sartzeko hautagai guztiak zeure **armetan iraganarazten** zenituela? ETC-literatura, saiakera

30 *errepikapen arma* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Gatling estatubatuar metrailadore astuna izan zen, arrakasta izan zuen lehenengo **errepikapen-arma** izan zena. Richard Jordan Gatlingek asmatu zuen 1861ean, Ameriketako Estatu Batuetako Gerra Zibilaren garaian, eta hurrengo urtean patentatu. ETC-entziklopedia

31 *esku-arma*

Hosto baten pare daldaraka hasi nintzen, **esku-arma** baten mutur beltza eni so susmatu orduko. Itxaro Borda

32 *jaurtitzeko arma*

Baina ez dugu nahi **jaurtitzeko arma** bihurtzea. Berria - Harian

33 *sateliteen aurkako arma* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Sateliteen aurkako arma satelite artifizialak ezgaitzeko eta suntsitzeko diseinatutako arma berezia da. ETC-entziklopedia

34 *su arma*

Su arma baten hotsa iritsi zitzaion belarrira. Karlos Zabala

Haren begirada [...] **su-arma** baten antzekoa zen, edonori ilea lazteko modukoa. Jose Morales

Jack obsesionaturik dabil bortxakeriaren eta **su-armen** salmenta askearen kontuarekin. Iban Zaldua

Erasotzaileak egoitzaren barrura sartu ziren **su armaz** tiroka eta eskuko lehergailuak botaz. Berria - Mundua

Laborariak beren igitai eta sardeekin; ofizialeak, mailuz, marrazaz eta lanerako bertze lanabesez hornituak; leinu hobekoak, ezpatak, baleztak eta are **su-armaren** bat ere eskuan. Aingeru Epaltza

· **Su arma** kopuru handi hau jendartean banatuta egotearen ondorioz, hilketak nabarmen ugaritu direla zehaztu du ikerketa txostenak. Berria - Mundua

35 *suntsipen handiko arma*

Suntsipen handiko armak Irak erasotzeko aitzakia baino ez ziren izan Altxor Publikoaren idazkari ohiaren aburuz. Berria - Mundua

Butlerren lantaldeak bost hilabetetan ondutako txostenak dioenez, Irakeko Gobernuak 45 minutuko tartean **suntsipen handiko armak** hedatu eta erabil zitzakeela zioen argudioak ez zuen "oinarririk». Berria - Mundua

The New York Times egunkariak, adibidez, gerra piztu aurretik, bat egin zuen tesi ofizialarekin: Irakek **Suntsipen Handiko Armak** zituen. Txema Ramirez de la Piscina

36 *suntsipen masiboko arma* *(corpusean ez dago; ETCn 27 agerraldi)*

30 eguneko epea ezarri diote estatubatuarrek Iraki, ' **suntsipen masiboko armak** deuseztatzeko programak argitzeko. ETC-prentsa

Irakiarren aurkako akusazioa " **suntsipen masiboko armak** " edukitzea eta NBEren ebazpenei kasu ez egitea da. ETC-prentsa

Une honetan, AEBak, Britainia Handia eta Espaniako Estatuak Irakek **suntsipen masiboko armak** zituela eta Saddam Husseinek Al Quaeda talde islamistarekin harremanak izan dituela frogatu behar dute. ETC-prentsa

Espero zitekeen krimenen damuz itzuli dela, aitortu berri baitu oker zegoela **suntsipen masiboko armei** dagokionez, baina tropak arengatzen ikusi baitugu, ez du damuak eraman. ETC-prentsa

Azpimarratu beharra dago nazioarteak ez zuela **suntsipen masiboko armen** erabilpen horien inguruan txintik ere esan, eta are gutxiago egin. ETC-prentsa

Egunkari honetan, aspaldian utzi genion **suntsipen masiboko armak** erabiltzeari. ETC-prentsa

Inpaktuei dagokienez, ordea, azken urteotan **suntsipen masiboko armek dute** lehentasuna. ETC-prentsa

Klimaren ingurukoekin batera, lehen postu horietan soilik zibersegurtasuna eta **suntsipen masiboko armak** agertzen dira. ETC-prentsa

Geroago, **suntsipen masiboko armak** zeuzkatela argudiatuta, Estatu Batuek, aliatu batzuen laguntzaz, Irak inbaditu zuten, nahiz gaur egun ez diren oraindik arma horiek aurkitu. ETC-entziklopedia

13 Barrutiko talde boteretsuenak **suntsipen masiboko arma** ahaltsu bat lapurtzea lortu du. ETC-entziklopedia

Ojiba nuklearra edo buru nuklearra Kontinente arteko misil nuklearren atal bat da, **suntsipen masiboko arma**. ETC-entziklopedia

37 *suzko arma*

Dagoberto Garcia poliziak azaldu zuenez, granadak eta **suzko armak** erabili zituzten erasoan. Berria - Mundua

Ertzainek gizonezkoa atxilotu egin zuten, **suzko arma** ustez baimenik gabe edukitzeagatik. Berria - Euskal Herria

Hortik zera ondorioztatzen da, Italiako errepublika horretan .122 ez zaizkiola egokitu gauzen izaerari, non **suzko armak** eramatea krimen larri gisa zigortzen den, eta non haiek gaizki erabiltzea ez baita okerragoa haiek eramatea baino. Iñaki Iñurrieta

Bestalde, buruen gainetik agertu ziren **suzko arma** haietaz bi gogoeta egin zituen. Elena Touyarou

Adierazgarria da adibidez, estatu guztietan zeresana duen erakunde federal berbera dela alkoholaz, tabakoaz eta **suzko armez** arduratzen dena (Bureau of Alcohol Tobbacco and Firearms delakoa. Harkaitz Cano

Nekazari aitzindari haiek eta soldaduek eramandako **suzko armen** kausaz? Pako Aristi

Sutzar handiak nonahi, **suzko arma** eta guzti, zarata, buila eta jai. Pello Zabala

Noaingo desastrearen albisteak kulebrina batekin harrapatu zuen Migel, **suzko armen** misterioen lehen eskolan. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arma atomikoak** (13); **arma bahimendua** (18); **arma bakarra** (27); **arma bat** (68); **arma batekin** (7); **arma baten** (11); **arma biltegi** (15); **arma biologiko** (8); **arma biologikoak** (7); **arma eskuan** (8); **arma eta** (46); **arma gehiago** (7); **arma gisa** (32); **arma guztiak** (44); **arma haiek** (8); **arma horiek** (26); **arma kimiko** (12); **arma kimikoak** (14); **arma nagusia** (44); **arma nuklear** (14); **arma nuklearrak** (146); **arma nuklearrak egiteko** (16); **arma nuklearrak garatzeko** (11); **arma nuklearren** (25); **arma nuklearrik** (16); **arma nuklearrik gabeko** (9); **arma politiko** (7); **bere arma** (49); **bere arma guztiak** (7); **beste arma** (7); **gure arma** (9)
>
> **su arma** (13); **suntsipen handiko arma** (9)

---

armada *(ETCn 64.348 agerraldi)* **1** *iz* gerra batean elkarrekin gudukatzen diren gudari taldeen multzoa; Estatu baten gudari taldeen multzoa. ik **gudaroste**.

Ontziko sotoetan bazen non egon, hartu gabe baikenituen **armada** abiatzean eraman beharreko gaiak,eta lehorrera bizkor hustua, aldiz,aldean ekarria genuen zama. Edorta Jimenez

Hori ez da oraingo kontua, eta amaitzen hasi zen guk gure beharrak bete genituenean **armadako** aitzindariekin, gure ondotik etorritako zu bezalako gazteak kuarteletara joan beharrean etxean gelditzen hasi zirelako. Pello Salaburu

Armadan ofizier, fede onez, behar baitzuen apez batek arduradun izan. Piarres Aintziart

Armadetako legeek ere ez dute tortura beharrezkoa ikusi, nahiz eta haiek nazioetako zaborrez osatuak egon gehienbat, eta horregatik iruditu beste inon baino erabilgarriago izan behar zukeela. Juan Martin Elexpuru

Frantziako **Armadak** hutsarazi herrietatik ekarririkoak oihalezko dendetan bizi dira. Xabier Montoia

Gogoratu zitzaion lotinant batek narratu ziola euskaldunek Alemaniako **armadaren** lau kide harrapatu zituztela Otxandio aldean egun batzuk lehenago. Lutxo Egia

Isil-isilik egon zen Durruty hasi zelarik erabaki horrek ekarriko zituen arazoen lerrokatzen; alde batetik nobleziaren, eta bestetik, agintari gehienak jatorriz klase sozial horretakoak zituen **armadaren** oposaketa orokorra, kapitalaren atzerriratzeko arriskua. Elena Touyarou

Halaxe dio bere lagun eta itzultzaile Monika Zgustovák: "Beldurra zion amerikarren edo errusiarren **armadak** bere herria askatu eta unibertsitateetako ateak irekitzen zituzten uneari, hainbeste gorrotatzen zuen karrera egiten segitu behar zuelako". Fernando Rey

Bigarren berria Palestinan bertze sei lagun gehiago hil ditu Israeldar **armadak**. Eneko Bidegain

Pentsatu nuen zein dotore, zangar eta kementsu ziruditen gizonezko haiek beren uniforme distiratsuak jantzita; eta, zer-nola miretsiko ninduen Mollyk, eta beharbada, maitatuko ere, **armadan** sartu eta uniforme gorrimin eskarlata-kolore hura jantzita ikusten baninduen; zein harro sentituko ziren ama, eta Big Joe ere. Mirentxu Larrañaga

Handik lau urtera **armada** utzi zuenean, gradudunez beherako zenbait kreditu eskuratu zituen Chicagoko De Paul unibertsitatean, baina unibertsitatean ikasteko bere buruari ordurako zaharregi iritzi eta hiru seihileko egin ondoren utzi egin zuen. Oskar Arana

Ezagutzen ditut aitaren gudakide ohiak, Ministerioko kargudunak eta **armadako** zakurtzarrak, dirua eta apeta nahikoa izango luketenak halako margolana beren saloi pribatuetan esekitzeko. Javi Cillero

Baina **armadak** bedeinkatzen ditu gerlara doazelarik, te deuma kantatzen duzue zeuen armek milaka kubatar akabatzen dituztenean... Koldo Izagirre

Berak **armaden** aurrerabidea jarraitzen zuen sukaldean eskegitako mapa batean, aldizkari pikaroak bazirela jakin zuen eta zinera joaten zen Y... ra. Joseba Urteaga

Faxistak Obaban sartu zirenean - esan zuen -, nire kide guztiek mendira jo zuten Agirreren **armadarekin** bat egiteko asmoz, baina nik Obaban bertan jarraitu nuen Alderdiak agindu hori eman zidalako. Bernardo Atxaga

Baina, aurrean ez zaitudan leku orotan zure **armadako** zelatariak atzematen ditut, itxura xarmangarriz jantzirik. Pedro Alberdi

Muggleen xakea bezalakoxea zen, baina hemen irudiak biziak ziren, eta horregatik guduan **armadak** zuzentzea bezala zen. Iñaki Mendiguren

'Gauza sinplea da,' dio Arantxak. 'Zorioneko errepublika honetan **armadaren** baten babesa behar duzu'. Joseba Sarrionandia

-Agitadore edo nahaslea -gogoratzen ari nintzen-, finantzaria, herriko batzordeko partaidea, asaldaria, **armadaren** izen onaren zikintzailea, milizianoa, salataria, medikua frontean, propaganda zabaltzaile zorrotza eta zinikoa... Edorta Jimenez

Pertsia, Lud eta Put herrialdeetako gerlariak zeneuzkan zeure **armadan**, babeski eta buru-oskolak zintzilikatuz apaintzen zintuzten. Elizen arteko biblia

Armadako kaporalak eta moja andanak ageri ziren aza mendien inguruan; eta ikastetxeetako sukaldariek usainka zihardute, mauka ederrik aurkitu nahian. Karlos Zabala

Neurri horri esker, ezin zen oasietan babestu inongo **armadarik** edo gerlaririk. Xabier Aranburu

Milaka milioi gastatzen ditugu armetan eta **armadak** eta politikari ustel eta ezgauzak mantentzen, baina ez dugu ez aurrekonturik ez giza baliabiderik erabiltzen bizitzako arlo oinarrizkoenetako batean, hau da, gure sexualitatean. Luis Elberdin

Enperadorearen soldado bat **armadatik** herrirat itzultzen da zonbait egunendako. Michel Oronoz

Eztabaidarako arrazoia politikoa izan ohi zen gehienetan; don Pedrok iraultzaileei iseka egiten zien, haientzat zituen mespretxu eta irain guztiak, eta burgesiari, apaizei eta **armadari** iseka eginez erantzuten zion Andresek. Josu Zabaleta

Parabola bat zen, amaren erreguei jaramonik egin gabe **armadan** izena ematea erabakitzen duen nerabe bati buruzkoa. Anjel Lertxundi

->00AinP01¬135<-Alta Napoleonen **armadek** Filosofoen Argien izenean nahi omen zuten Espainia menperatu. Menane Oxandabaratz

2 (izenondoekin)

Guretzat miresgarria zen **armada** ulertezin hura. Joseba Sarrionandia

-Hilabetean behin aurkeztu behar izaiten zuen Donibane Lohizunen, **armada** alemanaren egoitza nagusian, Hôtel de la Poste etxean. Eneko Bidegain

Britainiar **armada** kolonialeko kapitainen antzeko jantzia zuen soinean. Jon Alonso

Hamasen arabera **"armada** sionistak porrot egin du leku guztietan". Berria - Mundua

Taula gainean, aurrez aurre ziren gure bi **armada** koskorrak. Alberto Ladron Arana

Eta mutiko txikiari istorio zaharrak berrituko zizkioten, **armada** arrotzaren etorreraren eta desmasien berri ematen zutenak. Aingeru Epaltza

Mexikotik irten gabe, bada Chiapasen talde paramilitar bat, **Armada** Zapatistaren kontra egitea duena xede. Iñigo Aranbarri

"Filosofoek" osatzen zuten gutxiengo ilustratuaren **armada** txiki baina beldurgarria, gutunak trukatuz, areto guztietan elkartuz, esamesa eta liskarretan oparo eta, batik bat, ezaguera eta zorroztasuna arma gisa erabiliz, ezarritako ordenaren aurka. Fernando Morillo

Horren ostean metrailadore-tiratzaile sartu zen **armada** errepublikazalean. Edorta Jimenez

Non dago **armada** amerikarra eta non dago Roosevelt presidentea? Harkaitz Cano

Laster, bere **armada** handiarekin, Europako beste erreinu edo inperio guztien gainetik Frantziako inperioaren ezartzera lehiatu zen, Madriletik Moskuraino. Piarres Xarriton

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Paretak lauki urreztatuekiko antzinako erretratuz beteak zeuden: bere arbasoen, birbirraitona-amonen, ezagunen, aspaldiko enplegatuen, **armada**-lagunen, jauregiko antzinako gonbidatu ospetsuen erretratuak. Xabier Olarra

Ontziaren barneetan, **armada** agintariak ibiltzen diren lekuetan dena txukun dago, baina ibiltzen ez diren tokietan, ostera, guztia egoera tamalgarri batean dago. Berria - Mundua

Zain egongo gara geure **armada**-sailen buruak muinoetan agertu arte, eta orduan azpiratu egingo ditugu inbaditzaileak. Karlos Zabala

Arabiarrek K.o. 673-7an Konstantinopla hartzeko ahaleginaren biharamunean, Kristandade Ortodoxoa bere buruaz beste egiteko zorian egon zen, anatoliar **armada**-gorputz batek eta beste armeniar batek nagusitasunaren bila anaiarteko borrokan hasteko mehatxua egin zutenean. Iñaki Mendiguren

Niri dagokidanez, errege naizen aldetik, berezkoa eta beharrezkoa denez, zuen guztien burua naizenez, **armada**-zati bat nire aginte zuzenaren pean hartuko dut, Monte da Graçan geldituko denarena, hain zuzen, hantxe paratuko baita kaserna nagusia. Jon Alonso

Bizpahiru ilunabar bitxi haietan, aiduru nengoelarik, kolore askotako espainiar **armada**-zainak ikusi nituen, harresiaren gaineko beren erronda-bidean kanoien artetik ibiltari. Txillardegi

Beinat kasik guardian bermatu zen, **armada**-nagusiak esku gibelaz jada ez dik balio keinukatzen ziola. Itxaro Borda

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bigarren gerla denboran, Alemanian gatibu egon zen, gune librean bazebilen okupazio **armadako** buruzagiekin aitak akort eta apart egiten zuela, premian gasnak, ogi zakuak eta oilasko panpoxak Fritz anitzei oparituz. Itxaro Borda

5 ***aire armada***

Bigarren Mundu Gerra (1939-1945) amaitu eta ia 60 urtera, gatazka hartan RAF Erresuma Batuko **Aire Armadak** hegazkinetatik ateratako bost milioi argazkik argia ikusi zuten atzo. Berria - Kultura

Beste hegazkin alimaleko bat ere badator, Zanbiako **aire armadakoa**. Xabier Olarra

"Armada, Itsas Armada eta **Aire Armadak** osatzen dituzten Indar Armatuen zeregina da Espainiaren burujabetasuna eta independentzia babestea, eta eskualde batasuna eta Konstituzioaren legedia defendatzea". Pello Salaburu

Agiriak dioenez, AEBetako **Aire Armadak** Saudi Arabia eta Kuwaiteko petrolio eraikinei eraso behar zien lehenik, eta ondoren, ziurrenik, Abu Dhabikoetara zuzenduko zen. Berria - Mundua

Espainiako **Aire Armadako** hegazkin batek 1.900 kiloko kaxa bat bota zuen herenegun 21: 42an Cascanten (Nafarroa). Berria - Euskal Herria

6 ***aireko armada***

Ordu batzuk lehenago, Hamaseko bi militante zihoazen auto bat tirokatu zuen Israelgo **Aireko Armadako** hegazkin batek. Berria - Mundua

AEBetako marineekin batera, Silicon Valleyko teknologien segurtasuna bermatzen duen ukabil ikusezina da lurreko, itsasoko eta **aireko armada**. Txema Ramirez de la Piscina

Talde horretako pilotuak Espainiako **Aireko Armadako** ofizialak direla azpimarratu zuen, eta erakustaldietan ez daudenean C-101 ehiza hegazkinetako pilotu izango direnak trebatzea dela haien egitekoa, "erasorako abioiak gudetan erabil ditzaten». Berria - Euskal Herria

Kapitain graduarekin **Aireko armadako** eskola teknikoko irakasle izendatu zuten. Josu Zabaleta

7 ***armada gorputz***

Donostiako Itsas Armadako Komandantziatik abiatuta, Espainiako hainbat **armada gorputzek** Club Nauticorainoko ibilbidea egin zuten. Berria - Euskal Herria

Arabiarrek K.o. 673-7an Konstantinopla hartzeko ahaleginaren biharamunean, Kristandade Ortodoxoa bere buruaz beste egiteko zorian egon zen, anatoliar **armada-gorputz** batek eta beste armeniar batek nagusitasunaren bila anaiarteko borrokan hasteko mehatxua egin zutenean. Iñaki Mendiguren

8 ***armada talde***

Bi mila laguneko **armada talde** errusiar txiki bat, Obi ibaiaren behealdean ikusita, eginahalean zetorren Tomsk aldera. Karlos Zabala

9 ***Errusiar Itsas Armada Inperial*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi)*

Errusiar Itsas Armada Inperiala Errusiar Inperioko itsas armada izan zen. 1696. urtean formalki sortu zen eta 1917. urteko Otsaileko Iraultzaren garaian eten egin zen arte iraun zuen. ETC-entziklopedia

10 *itsas armada*

Frantziako **Itsas Armadako** 11 aditu eta hiru pakistandar hil zituen. Berria - Harian

Herriak ateratzen zuen traineru bat, eta **itsas armadak** bestea. Berria - Kirola

Iragan igandean hil zen Buenos Airesen diktadura garaian (1976-1983) **Itsas Armadako** almirante izan zen Armando Lambruschini, 80 urte zituela. Berria - Mundua

Frantziako **itsas armadak** Angelun duen eremuan iragan da hori. Herria

lecher Christian Erresuma Batuko **Itsas Armadaren** HMS Bounty itsasontziko lehen ofizialaren historia ezaguna da, haren inguruan egin diren filmei esker. Berria - Gaiak

Uhartea, erromatarrez geroztik, inor gabe egon zen mendeetan eta gereziondoak giza eskurik gabe hazi eta zabaldu ziren uharte osoan, nahi eta ahal zuten moduan, txorien eta haizearen laguntzaz ez bestez, baina bertako biztanleek, arrantzatik eta Veneziako **Itsas Armadan** marinel lanetatik bizi zirenek, uharte gehiena zelaitu zuten, mugatu beraz gereziondoen zabarkeria. Felipe Juaristi

14 Hala, Mausolo hil zenean, bere emazte Artemisa jarri zen erregetzan, eta Rodaskoek, emakume batek Kariako hiri guztien gain agintzen zuelako haserre, **itsas armada** prestatu zuten eta abiatu ziren erreinua menderatzeko asmotan. Santiago Iruretagoiena

-Ekarri orduan agintari militarren zerrenda, lur - eta **itsas armadako** urtekaria, eta dauzkazun eskuliburu militar guztiak. Anton Garikano

Behin irakurri nuen **Itsas Armada** Britainiarrak erabiltzen dituen toldo guzti-guztiek hari gorri bat daukatela osagarri, eta horren kariaz inork ez dituela osten, hari gorria salatari bihur daitekeelako. Bernardo Atxaga

Pierre Deyon-ek gogorarazten duen bezala, "merkantilista gehien-gehienek bazekiten biztanleria ugaria eta langilea, lur emankorra eta klima egokia, manufaktura eta **itsas armada** aktiboak zirela aberastasunaren benetako sorburua eta bermea". Koro Navarro

Sortzaileen jaiotzatiko turkiera zen administrazio inperialaren hizkuntza ofiziala, baina otomandar boterearen une gorenean kristau-aroko hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetan padisharen esklabo-etxeko lingua franca serbo-kroaziera zen eta otomandar **itsas armadaren** lingua franca italiera. Iñaki Mendiguren

Potiomkin bakarrik Tzarraren **itsas-armadaren** aurka. Koldo Izagirre

Inork ez bezalako **itsas armada** duzu. Anjel Lertxundi

11 *lur armada* *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

Infanteria, oro har, borrokan oinez diharduen tropa da; **lur-armadaren** atala, erasoan lur-eremuak hartzea eta defentsiban lurraldeak mantentzea xede duena. ETC-entziklopedia

Antza denez, goi mailako teknologian gehiago inbertitu ahal izateko **Lur Armada** murrizteko aholkua emango du Defentsa idazkariak. ETC-prentsa

Horrez gain, 2.774 polizia nazional eta **Lur Armadako** 3.950 kide daude. ETC-prentsa

Lur Armadaren %70k, berriz, Chavezen politika sostengatzen bide du. ETC-prentsa

AVN informazio agentzia militarrak zehaztu duenez, Defentsa ministrorde eta **Lur Armadako** agintari nagusi Nikolai Kormiltsev jeneralak zuzenduko du ikerketa hau. ETC-prentsa

Aukera guztiak zabalik daudela zehaztu zuen: "Israelgo **Lur Armadaren** erasoaldi bat barne". ETC-prentsa

Espainiako Armadako Alcala de Henareseko paraxutista brigada izan ohi da ariketak egiten dituena, tokian tokiko **lur-armadako** brigaden eta Guardia Zibilaren laguntzaz. ETC-prentsa

Bruno Cuche Frantziako **lur armadaren** estatu nagusiko buruak dimisioa eman zuen atzo, eta Nicolas Sarkozy presidenteak onartu egin zuen. ETC-prentsa

Ergenekon sareko kide ziren ustez, eta aire eta **lur armadako** hamazazpi jeneral ohi eta itsas armadako lau almirante atxilotu dituzte, besteak beste. ETC-prentsa

9 *lurreko armada*

Ez, gizona, **lurreko armadan**, non hobeto, egunen batean handik Leibstandartera jauzi egin nahi badu? Anjel Lertxundi

Eta, beraren titulua **lurreko armadari** zegokiona zela gogoraturik, ber-bertatik erabaki zuen beste izen bat hartzea, hainbat eredu ospetsuri jarraiki. Juan Garzia

Bestalde, Espainiako Armadako kapitain Roberto Gonzalezi zigor neurriak jarriko dizkio **Lurreko Armadak**, Melillako egunkari batean Espainiako egoera politikoa kritikatzeagatik. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aebetako armada** (23); **armada bat** (21); **armada batek** (8); **armada baten** (11); **armada berria** (11); **armada errepublikanoa** (8); **armada errepublikanoak** (26); **armada errepublikanoaren** (12); **armada eta** (46); **armada eta polizia** (11); **armada gorria** (9); **armada guztia** (7); **armada guztiak** (7); **armada handia** (7); **armada iraultzaileari** (8); **armada islamikoa** (10); **armada islamikoak** (14); **armada oso** (12); **armada oso bat** (7); **armada osoa** (15); **armada txit** (24); **armada txit zorioneko** (13); **armada txit zorionekoa** (7); **armada zapatistak** (7); **askapen nazionaleko armada** (9); **askapenerako armada** (13); **bere armada** (15); **bretainiako armada** (27); **bretainiako armada iraultzaileari** (8); **errusiako armada** (7); **espainiako armada** (32); **estatu batuetako armada** (11); **herriaren armada** (10); **irakeko armada** (49); **irlandako armada** (18); **irlandar armada** (37); **israelgo armada** (67); **itsas armada** (21); **mehdiren armada** (29); **nazio askapenerako armada** (13); **nazionaleko armada** (9)

---

armadaburu *iz* armada baten burua.

Bosnian, serbiarren presidente Radovan Karadzicek eta haren **armadaburu** Ratko Mladicek sarraski ugari egin zituzten musulmanen eta kroaziarren aurka. Berria - Harian

Gure **Armadaburu** izandako Joakin Elio Ezpeleta jeneralarenaz ari naiz. Txillardegi

Han Bernard d'Arros zen nagusi, erreginak lotinant jeneral eta Nafarroako **armadaburu** izendatua zuen aldetik. Aingeru Epaltza

Erregina Joanak, Arroxelara partitzean, Agaramont kendu eta Arros utzi zuen bere ordezko, **armadaburu** eta lotinant jeneral. Aingeru Epaltza

Margolan haietan gizaki indartsuak bakarrik ikus zitezkeen, Greziako **armadaburuak** denak, bakoitza bere benetako neurrian pintatua: Mavrokordatos -jaka eta galtza gorriak soinean, betaurrekoak sudur gainean-, Miaulis, Kanaris. Jose Morales

Preseski Richard Myers Amerikanoen **armadaburuak** egin du bisita bat Haitirat erranez gauzak hobetzen ari direla han, nahiz pobrezia bera duten herri hortan, gizon batzu aldaturik ere. Herria

70 Estaduk dute holako gizon edo soldado galdea ukana eta ez bide da 10 baino gehiago baia emana dionik Ronald Rumsfeld **armadaburu** amerikarrari. Herria

Hala dio Errusiako Itsas **Armadaburuak**, eta konponketerako bi astez portuan egotera behartu du. Berria - Mundua

Errusiako Itsas Armadaren kinka larriaren adierazgarri litekeen iragarri ezohiko honen atzean, haatik, **armadaburuen** arteko etsaigoak baleudekeela diote hedabideek. Berria - Mundua

Kommersant aldizkariak, izenik eman gabe, aipatzen zuen Itsas Armadako goi agintari baten arabera, 'Piotr Veliki'-ren traza txarraz egindako adierazpen horiek eta gerra ontzia bi astez portuan geldian egotera behartzea, bi **armadabururen** arteko etsaigoaren ondorio bat legoke. Berria - Mundua

---

armadakide *iz* armada bereko kidea.

Armak entregatzeko esan zitzaien eta hori egiten ari zirela, halako batean, norbaiti tiro bat eskapatu eta denak hasi ziren borrokan. 300 bat indio hil ziren, eta soldadu batzuk ere, azken hauek beren **armadakideek** tiro emanik ez ustean, eta 50 bat bakarrik geratu ziren bizirik. Pello Salaburu

Zabuka, erortzeko zorian, elkarrekin behaztopa eginez aienatu zarete zuen **armadakide** hordituek osatu itsasoan gaindi, ekaitzak behin eta berriz zigortu txalupaño ezdeusa irudi. Xabier Montoia

Adiskide gintuan, ez jolaskide, abenturakide, **armadakide** soil. Xabier Olarra

---

armadatxo *iz adkor* armada txikia.

Jadanik Beinatek, Biskratik Aljerrerako **armadatxoaren** gibelean barranda zebilenean argi zuen hori, ez zeukan eraginiko minarekiko sentimendurik: orobat zitzaion eta bizirik etxeratzea baizik ez zuen desiratzen. Itxaro Borda

armadilo *(corpusean ez dago; ETCn **84** agerraldi) iz* Cingulata ordenako ugaztun familia *(Chlamydophorus truncatus* edo *Chlamyphorus truncatus).*

Zuhaitzon pean, zaldiak hantxe gelditu ziren-eta, neskatxa bat olgetan zebilen **armadilo** batekin. ETC-literatura, saiakera

Zoriontsuak, baldin eta hezur hutsetan dagoen loro bat botatzea lortzen badugu, edo musker tupinambis lodi bat harrapatzen badugu, gure arrozarekin egosteko, lehorreko dortoka bat bere oskolean erretzen badugu, edo haragi oliotsu eta beltzezko **armadilo** bat. ETC-literatura, saiakera

Armadilo muturluze arruntak lauki berdin-berdinen kumalditan jaiotzen dira. ETC-literatura, saiakera

Basoan jaguarrak, sugeak, **armadiloak**, iguanak daude. ETC-prentsa

Gizakiaren garai berean bizitzera iritsi zen, eta **armadiloa** haren ondorengoetako bat izan daitekeela uste da. ETC-prentsa

Haren ikuskerak, haren zabortegiko txatar begiradak, autobidea zeharkatu nahi baina autoak harrapatu zuen **armadiloaren** begirada horrek identifikatzen du amets estatubatuarraren beste aldea. ETC-prentsa

Zortzi bat urte izango nituen osabak Nikaraguatik zurezko **armadilo** koloretsu hura ekarri zidanean: luzaz eduki nuen mesanotxean. ETC-prentsa

Hego Amerikako ekialdean, **armadilo** handi biziak topatu zituen, eta fosil batzuk antzekoak zirenak: antzekoak, baina argi eta garbi ez orain bizirik zeuden espezieetakoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gliptodontea ("Glyptodon clavipes"), antzinako grezieraz "hortz zirrikitua" esan nahi duena, Hego Amerikan Pliozenon bizi eta duela 8.500 urte inguru Espezieen iraungipen iraungi zen **armadilo**-espeziea izan zen. ETC-entziklopedia

---

armadore *iz* itsasontziak prestatzen edo atontzen dituen pertsona.

"Bow Eagle" Norvegiako karga untziaren **armadoreak** aitortu du bere ontziak zuela jo "Cistude" errekontruan urperatua izan den Frantses arrantza untzia, Sein ugartearen ondoan. Herria

Hainbat iturriren arabera, **armadoreak** bazekien Prestige-k istripuren bat izan zezakeela. Berria - Gaiak

Bermeoko bi **armadoreren** enkarguz egina, beira zuntzez indartutako poliesterraz eraiki dute ontzi guztia. Berria - Ekonomia

Ostegunaz geroztik Baionako portuan atzemanda dagoen Peña Verde ontziko **armadoreak** 60.000 euroko bermea ordaindu beharko du. Berria - Ekonomia

Auzo bat besterik ez zen Trintxerpe, arrantzale txiroen etxe multzo hezea, **armadoreek** berek merke jaso eta garesti saldua. Koldo Izagirre

Don Serapio oso apez berezia izan zen, sermoi sutsuak egiten zituen aldian behin arrantzaleei soldata duina eman nahi ez zieten **armadoreen** aurka. Koldo Izagirre

Gure *Izarra Berri* ez zen oso bafore berria, baina kosta on bat zeukaten, bazuen Porto do Son-go seme isil hark aski kalipu pilotuari bezain zakar egiteko **armadoreari** ere, nekez onartuko zuen gure flota, zaharrean zahar zelako, hondatua egon beharraren logika. Koldo Izagirre

Zazpi marinel eta merkatari bat, azken hau Bordeletik etorria **armadoreei** nabigazio sistema berri bat saldu guran. Josu Landa

Hitzari eutsi zion: gure hirira itzuli orduko Ordenaren Elkarte ospetsua sortu zuen, urte luzetan gauero biltzen zituena Bouvilleko negozio-gizon eta **armadore** nagusiak. Monika Etxebarria

Armadore baionar batzuek hemen egiten dituzte beren ontziak, Bilbon edo Santanderren uzten dizkieten izen espainolekin; Espainiarekiko komertziorako ontziak dira, bertan eginak ez izatera frankiziarik ukanen ez luketenak. Koldo Izagirre

Zaharren bati edo lagunen bati entzuna zion, gero, Esmirna hark hamarren bat urte zeramala han Kaioarrin, marinelek apropos enkailatu zutela ur haitzetan, karga eta guzti, ontziaren **armadore** grekoak burdinazko tramankulu zahar hura mantendu baino nahiago zuelako seguruak ematen zituen diruak kobratu. Joseba Sarrionandia

Zortzi **armadore** eta behatzaile bat atxilotu zituen atzo, Guardia Zibilak Ondarroan (Bizkaia) ustelkeria egotzita. Berria - Euskal Herria

---

armadun **1** *izond/izlag* armak dituena.

Ouroana zeharkako edo zuzeneko jaunik gabe gelditu zen, beraz, eta eduki zuen lehen aukeran hori frogatzeko adorea erakutsi zuen, Henrique zaldunaren gizon **armadunetako** batek, defuntuari errespetuak oro galdurik, eta bakarrik zegoela profitatuz, hantxe bertan eskua gainean ipini nahi izan zionean. Jon Alonso

Bi aste lehenago hasitako joan-etorriak finitu eta "helmuga" zioen txartela ageri zen nire aitzineko figura **armadunetik** zintzilik. Aingeru Epaltza

Filosofo **armaduna**. Oskar Arana

Badu aspaldi ez naizela hemen izana, baina azken aldian, jende **armadunek** bazuten mugimendu. Elena Touyarou

Gazte guztiek lanpostu baten jabe -mirabe- izateko duten eskubidearen alde; emakumeek munduko alarde **armadun** guztietan ateratzeko duten eskubidearen alde; pobreek zernahi erosteko duten eskubidearen alde. · Horregatik erregeak agindu zuen On Joâo Peculiar eta On Pedro Pitôes hiriko gobernadorearekin mintzatzera joan zitezen, zenbait aitoren semek eta, sekitoaren tamaina zenbateko, hainbat **armadun** gizonek lagundurik, bai luzitzeko eta bai segurtasuna bermatzeko ere. Iñaki Segurola

Usoak entzutea Alfreden, eta ez edukitzea ez eskubiderik eta ez baimenik hartaz gozatzeko, zeren leku hartan gandua, usoak, eguzki-argia, kobrezko lohia, ilargia... den-dena baitzen **armadun** gizonena. Anton Garikano

2 *iz* armak dituen pertsona.

Lurrezko munduan, mundu errealean, badira **armadunak**, Auschwitz eraikitzen dute, eta prestu eta armagabeek lautu egiten diete bidea. Juan Garzia

Zoazte eta inguratu hiria; **armadunak** Jaunaren kutxaren aurretik joan daitezela. Jose Antonio Mujika

Lau **armadunek** zeramaten hildakoaren andak, Mem Ramiresek agintzen zuen soldadu portugaldarren goardiaz lagundurik, Ouroana atzetik dator, oinez. Jon Alonso

Ouroanak eskua gainean paratu nahi izan zion lehen **armadunaren** aurka Henrique zaldunaren labana zeinen arin erabili zuen jakinik, [...]. Jon Alonso

Terrorismoaren definizio batzuetan, bestalde, bereizi egiten da egiten zaiona **armadunari** egiten zaion (ez terrorismoa) edo armagabeari egiten zaion (bai terrorismoa). Iñaki Segurola

Orthezeko karriketan eta etxe barrenetan, borroka bakarra **armadunen** eta armagabeen artekoa zen jadanik. Aingeru Epaltza

---

armadura **1** *iz* burdinazko atalezko soinekoa, antzinako gerra gizonek babesgarri gisa erabiltzen zutena. ik**armajantzi**.

Zaldi gainean Iñigo prest dago, **armadura** eta guzti. Martin Anso

Erantzuna gustatu nonbait handikiari eta bere **armadura** bat, dena urregorrizkoa, Enperadorearen armarriduna, opari gisa emateko agindu zuen, **armadurak** gizon ausartentzat zetazko beloak emakume ederrentzat bezala zirela argudiatuz. Felipe Juaristi

Piztia hori irudikatzeko garai horretan indarrean zeuden eskemak oso-osorik errepikatzen ditu, **armadura** baten gisako koraza xaflaz estalita zegoelako ustea irudira bihurtzeko konbentzioak, besteren artean. Josu Zabaleta

Geldiunearen ondoren, mendeku-su bizi batek deragio berriz Pirrori; eta ez da ziklopeen mailua sekula Marteren **armadura** beti irauteko forjatuaren gainera gupida gutxiagoz jausi, nola baita Pirroren ezpata odoltsua orain Priamoren gainera jausten. Juan Garzia

Nonbait ere irakurria dut zaldi gainetik erortzen zirela eta ez zirela gai izaten berriz zutitzeko ere, nekatuegi egoten zirelako **armadura** hori guztia gainean zutela berriz altxatzeko. Koro Navarro

Handik gutxira, zaldun mozkote bat zaratatsu sartu zen margolanera, **armadura** eta guzti, bere ponyaren atzetik. Iñaki Mendiguren

Nor ez da bere golkorako poztuko heroeak **armadura** erantzi, eta leiho ondoan gelditu eta begiratzen badie emazteari eta semeari. Anton Garikano

Armadurak urratu egiten ziren. Fernando Morillo

Eguzkia ezkutatzen ari zen itsaso aldetik, eta **armadurak** distira egiten zuen, hain zegoen garbia. Felipe Juaristi

Zauriturik dago, agian hilzorian, baina bizirik dagoela uste dut -eta ezpain izoztuetara **armaduraren** besoko distiratsu eta leundua hurbildu ondoren, laino fin eta ia ikusezinak lurrundu zuen gainazal dirdiratsua. Agustin Otsoa

Mendian zegoela sumatu zuen, bideak lainopean gora egiten baitzuen, eta erre usaina ere nabaritu, norbaitek sua piztu balu bezala, eta soinu bat ere iritsi zitzaion

armaduraren zuloetatik barrena, ura borborka ari denean bezalakoxea. Felipe Juaristi

Alberto Díaz de Heredia, Palermoko bigarren printzea atzera bakarrik zegoela ohartu zenean, **armaduratik** ateratzen saiatu zen, baina alferrik. Felipe Juaristi

Berehala ohitu zen, ordea, **armadurara**, esku zuria eskularrura ohitzen den bezala. Felipe Juaristi

-Hemendik! -esan zien Harryk besteei ia ahotsik atera gabe, eta, ikara bizian, **armaduraz** beteriko galeria luze batean aurrera abiatu ziren hotsik egin gabe. Iñaki Mendiguren

Bertako estatua nagusia ikusita, elizak San Migel zuela zaindari pentsa zitekeen, **armaduraz** jantzitako eta ezpataz armatutako santuaren irudi gazteak hegodun herensuge luze bat zapaltzen baitzuen. Aitor Arana

Goizaren erdira iritsi gara, eguzkia goian dago, izerdia ibaika jausten da **armaduren** azpian. Jon Alonso

Ziztu bizian alde egiten entzun zuten, **armaduretan** hotsa ateraz ondotik igarotzean. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lurra zapaldu orduko, **armadura** osoa zirtzildu zaio bat-batean, zalapartatsu, eta guda-jantziari eusten zion Herio agertu da, mutilak behar zuen tokian, zurbil eta itzaltsu. Anjel Lertxundi

Lehendabizi esan zitean elfo handia zela, **armadura** distiratsu batekin; gero gizon ttipi bat, nanoen antzekoa; orain, Uruk-haitar matxinatuen talde bat izan daitekeela; ala agian hauek guztiak batera. Agustin Otsoa

Armadura distiratsuko zalduneria ezkoa bezala urtu zen espainolaren su-erauntsiaren pean. Aingeru Epaltza

Hura zen, bada, haiengana zihoan pertsonaia, **armadura** beltzeko soldaduen konpainia txikiarekin batera, zutoihal beltz bakarra eramanez, baina bertako Begi Gaiztoa gorriz pintaturik. Agustin Otsoa

Handik pixka batera Antonio Díaz de Heredia azaldu zen, poliki-poliki, **armadura** urregorrizkoan sarturik, ezpata handi bat eskuin eskuan. Felipe Juaristi

Erretratu marmartien eta **armadura** kirrinkarien ondotik igaro eta harrizko eskailera-zati estuetan gora igo ziren, azkenean zegokien korridorera iritsi ziren arte. Iñaki Mendiguren

Gizonak zaldien gainean, erromatar **armadura** arinez jantzita; emakumeak gasazko errezelez estalita, besoak airerantz luzaturik aieneka. Oskar Arana

Eta bihotzaren segeretuan zin egiten du, Etxauzko bizkondea bezala, zaldi xuri baten gainean, zilarrezko **armadura** bat soinean, arbasoen azkonarekin, lehengo Mauro edo Franko bezalako etsairik agertzen bada, gudukatuko dituela eta kalituko. Michel Oronoz

3 (hitz elkartuetan)

Gilermo Konkistatzailearen soldaduak sarmatiar kasket koniko eta ezkatazko **armadura**-jakaz ekipatuak daudela. Iñaki Mendiguren

Eguratsa orratz zorrotzez mukuru dagoela iduri du, eta sinets liteke zaldun **armadura** bat ez litzatekeela nahiko izango diptero horien eztenetik libratzeko. Karlos Zabala

4 irud/hed

Gurutzearen **armadura** gorputzean eraman nahirik, irrika sentsualak hain diziplina gogorrez zentzatzen zituen, ez baitzuen jaten naturari eusteko behar-beharrezkoa baizik. Askoren artean

Gizonaren jarrerak, bart gaueko solasaldiak, bere historia osoak laztan bat eskatzen zuten, bere burdinazko **armaduratik** askatzeko ari ziren eskatzen, bere egiazko izatea ez baizik azalekoa baitzen zurruntasun hura, **armadura** bortitz eta gogorra. Xabier Mendiguren Elizegi

Kristau Elizak egin zuen Eskritura juduen birsagarapena, kristau-fedearen Itun Zahar gisa, ahulgune bat zen kristautasunaren **armaduran**, handik zehar zulatzen zutelarik kristau-kontzientzia judu-kritikaren geziek. Iñaki Mendiguren

Zintzotasun-gabezia hori akats bat zen komunismoaren **armadura** moralean. Iñaki Mendiguren

5 ***klabe armadura*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Gako-armadura, **klabe-armadura** edo, modu sinplean, armadura konposizio batean kakoaren eta konpas zeinuaren artean jartzen diren sostenitu eta bemolen multzoa da; tonua mugatzen du. ETC-entziklopedia

Klabe-armaduran dator! ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **armadura bat** (4); **armadura baten** (5); **armadura eta guzti** (4); **armadura urregorrizkoa** (4); **armadura urregorrizkoan sarturik** (3)

---

armaduradun *izlag* armadura duena.

Hark ere bandera beltza ezarri hondartzan eta aldarri egin zuen herria txikituko zuela, ez zela inor bizirik geratuko, ez haur ez emakume, ez abere ez agure, **armaduradun** kapitainarekin borroka egin ondoren lurra jaten ez bazuen behintzat. Felipe Juaristi

Eta gure gizonetako batzuk mila **armaduradun** zaldun baino baliotsuagoak dira. Agustin Otsoa

---

armagabe *(ETCn **1.131** agerraldi, horietatik **1.003** azken sei urteetan) izond* armarik ez duena.

Terrorismoaren definizio batzuetan, bestalde, bereizi egiten da egiten zaiona armadunari egiten zaion (ez terrorismoa) edo **armagabeari** egiten zaion (bai terrorismoa). Iñaki Segurola

Lurrezko munduan, mundu errealean, badira armadunak, Auschwitz eraikitzen dute, eta prestu eta **armagabeek** lautu egiten diete bidea; horregatik Auschwitzengatik aleman orok erantzun behar du; areago, gizon orok; eta Auschwitzen ondoren ez da jada zilegi **armagabe** izatea. Juan Garzia

Gazte nahiz zahar, gizaseme nahiz emakume, armagizon nahiz **armagabe**, guztiek nahi zidaten zerbait erran, guztiek zerbaiten gonbit egin. Aingeru Epaltza

Orthezeko karriketan eta etxe barrenetan, borroka bakarra armadunen eta **armagabeen** artekoa zen jadanik. Aingeru Epaltza

---

armagabetu *(ETCn **178** agerraldi, horietatik **150** azken sei urteetan) izond* armak kendu zaizkiona.

Bat-bateko pozaldi hartan, borrokaldiaren larrian arma bat ezustean topatu duen gerlari **armagabetua** nola, halatsu sentitzen zen. Patxi Zubizarreta

---

armagabetze *(ETCn **3.067** agerraldi, horietatik **2.832** azken sei urteetan) iz* armak kentzea.

Abbasek, anartean, nekeak izango ditu erakunde ekintzaile palestinarren **armagabetze** lortzeko. Berria - Mundua

---

armagile *iz* armak egiten dituen pertsona.

Hegazkingile eta **armagile** europarrak bi presidente ditu, Phillippe Camus frantziarra eta Rainer Hertrich alemaniarra. Berria - Ekonomia

Cienfuegosek edo Azkaratek edo ezpainean behera sakaila duen Eibarko **armagile** batek edo tabernari irakurtzale batek zure berba esplikatuko zuten urteetan, tipografo klandestinoak balira legez. Koldo Izagirre

---

armagin 1 *izond/iz* eibartarra.

Hasiera baten, ez dago talde **armagina** baino klub egokiagorik jokalari gisa hazteko. Berria - Kirola

Talde **armaginak** Olabe fitxatu zuenetik ez du txistuak entzuteko aukera asko izan. Berria - Kirola

Armaginak sailkapeneko putzuan sartuta daude eta ura leporaino iristen zaie. Berria - Kirola

Armaginek ez dute partida irabazten asmatzen. Berria - Kirola

---

armagintza *iz* armak egiteko lanbidea, arma industria.

Uranio pobretuaren erabilera gero eta handiagoa da **armagintzan** . Berria - Mundua

Euskal Herriko enpresak oso ospetsuak dira **armagintzan** egiten dutenagatik. Berria - Euskal Herria

Eta horixe da bere ofizioa; ez du ehizan ibili behar, ez **armagintzan** , ez gerran... tribuko kontalaria da. Unai Elorriaga

Armagintzan 9.300 milioi euro xahutzen ditu munduak hiru egunean. Berria - Gaiak

Armagintzaren kontrako protesta Bilbon. Berria - Euskal Herria

Guztira 51 pertsona atxilotu zituzten, ustez **armagintzarekin** zerikusia izateagatik. Berria - Mundua

Defentsa ministro Geoff Hoon-ek **armagintza** nuklearrean aditu zen zientzialari britainiar baten izena eman zuen -David Kelly- BBCko informazio deseroso horien errunduntzat. Txema Ramirez de la Piscina

Martiztar teknologia aurreratuagoa aztertu eta bereganatu dute ingelesek eta, ondorioz, energia mota berrien jabe dira, **armagintza** arloan bero-izpiek berunezko balak ordezkatu dituzte, eta karramarro-zangoen gainean dabiltzan ibilgailu mekanikoek zaldiak desagerrarazi dituzte. Berria - Kultura

Iaz, EAEko **armagintza** sektoreak 85 milioi eurotik gorako etekinak lortu zituen; heriotza eta sarraskia esportatzetik lortutako irabaziak, alegia. Berria - Euskal Herria

Errusiak zorrozki betetzen ditu **armagintza** salmentaren akordioak. Berria - Mundua

Sapa **armagintza** enpresak datorren urtean itxiko du Soraluzeko lantegia. Berria - Ekonomia

Gaur egun Iruña Okako instalazioetan 82 langile ditu **armagintza** konpainia horrek. Berria - Ekonomia

Niri, ordea, agiri ofiziala eman didate, **armagintza** -industriako komandantearen zigilu eta guzti; "Csepeleko muga zeharkatu" dezakedala dio. Urtzi Urrutikoetxea

Armagintza bilduma: Batetik, XV. mendetik XIX. mendera arteko ezpatak, sableak eta ezpata txikiak eramango dituzte ondare zentrora, eta bestetik, XVII. tik XIXra arteko pistolak, karabinak, eskopetak eta fusilak. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
armagintza industriako (3)

---

armagizon *iz* armak erabiltzen dituen gizona.

Zorionez, Beltzuntzeren aginduz **armagizon** bat nuen gidari. Aingeru Epaltza

1558an, Frantziaren eta Espainiaren artean berriz ere gerla piztua zela-eta, Antonio Borboikoak bere meneko lurraldeetako noble, infantzoi eta **armagizon** guztiak bildu zituen berriz, lehenago bere aitaginarreba Henrike II.ak egin ohi zuen gisara. Aingeru Epaltza

Jerusalemen bizi ziren Peretzen ondorengo guztiak 468 ziren, denak **armagizonak** . Elizen arteko biblia

Laborari eta burgesak ez ezik, **armagizonak** ere baziren haien artean. Aingeru Epaltza

Armagizonek ipini eta kentzen zituzten enperadoreak eta barbarotzat jotako nazioetatik ateratzen zituzten sarri. Juan Martin Elexpuru

Armada liberatzaileak hirian aurkitu zuen laguntzaile abantzu bakarra erregeren **armagizonen** ihesean zebilen, espainol edo beaumondar ziraun baten gisan. Aingeru Epaltza

Ziudadelako **armagizonak** gazte eta eskarmentu gabeak ziren gutiz gehienak, eta adorez ez zebiltzan soberan. Aingeru Epaltza

Aitatxik bere zaintza-saria hutsaren hurrengoraino mehetu zuen bere agindupeko **armagizonen** kopurua gizendu ahal izateko. Aingeru Epaltza

Handik gutira, ministroek nahikeria agertu zioten plazatik kanporatzeko soldatapeko **armagizonen** artean Erromako eliza-ri kontzen ziotenak. Aingeru Epaltza

Arestiko **armagizonen** gorroto bera dago haren begietan eratxikirik, halako etsimendu batek eztitua. Aingeru Epaltza

Bertze **armagizon** talde batzuekin kausitu nintzen bidean, baina inorengan ez nuen goganbeharrik piztu. Aingeru Epaltza

Arrotz tropa horrek ez zuen **armagizon** saldo batek, nonahikoa izanda ere, berez pizten duen mesfidantza apalduko inguruko bizilagunen artean. Aingeru Epaltza

---

armagnac *iz* Frantziako Armagnac eskualdean ekoizten den edari bizia, ardo motelen destilatzetik lortua.

Lepoan lotuta zuen zapiarekin ezpainak garbitu eta mahai gainean uzten ikusi nuenean, beldur izan nintzen nagusi ipurtandiarengatik kontakizuna amaitu gabe joango ote zen, besteetan, puntu hartaraino iristen zenetan, hartu ohi zuen **armagnac** kopatxoa edan gabe. Ramon Saizarbitoria

Gaurko egunak badu zerbait berezia, eta merezia du **Armagnac** on baten eskaintza. Pako Aristi

-Eta? -esan zuen Jontxuk, **armagnacari** txurruta egin eta marlboro bat piztearekin batera. Xabier Mendiguren Elizegi

Gau hartan, elkarrekin afaldu genuen eta kopa beretik edan genuen **armagnaca** . Anjel Lertxundi

---

armairu *(ETCn **6.423** agerraldi)* **1** *iz* altzari garaia eta itxia, arropak, jantziak, hornidurak eta kidekoak gordetzeko erabiltzen dena. ik **arasa**.

Epaileak hauts-pala **armairu** batean sartu zuen, itxi zuen, eta akta-jasotzaileari deitu zion ezkoz zigila zezan. Josu Zabaleta

Neskatoa **armairu** batean giltzatu zuen tarrapataka. Itxaro Borda

Jende asko da Touretteren sindromeagatik larritu eta lotsatzen dena, mundutik erretiratu eta **armairu** batean ezkutatzen dena. Xabier Olarra

Etxe osoa arakatu zuen, etxapetik hasi eta ganbararaino, **armairu** guztiak zabaldu zituen, altzari guztiak miatu. Josu Zabaleta

Eskua Louis XIII **armairu** bateko hirugarren apalera eraman eta pergaminozko eskuizkribu handi bat atera zuen handik. Josu Zabaleta

-Lau mailako **armairu** bat nahi dut, eta maila bakoitza bere sarrailarekin. Patxi Zubizarreta

Eskoziako whiskia **armairuan** duzue, eta izotza, berriz, pitxer horretan. Mirentxu Larrañaga

Armairuan nahas-mahas zeukan arropa guztia maleta txiki batean gorde, biolina hartu, gelako atea itxi eta presaka jaitsi zituen eskailerak. Felipe Juaristi

Egun hartan ofizialki estreinatu zituen udako janzkiak, aurreko bederatzi hilabeteetan **armairuan** gordetako soineko berde mahukabakoa eroatea erabaki baitzuen arratsalde hartan. Josu Landa

Nola gorde ordea, **armairuek** giltzarik ez badute? Xabier Mendiguren Elizegi

Lisatzeko gelari **"armairuen** gela" ere deitzen zitzaion. Fernando Rey

Naftalina-usaina zuen, baita kaxa huts eta zetazko paperez beteriko **armairuena** ere. Lopez de Arana

Léonce andreak etxea garbitzen zion, **armairuetako** giltzak gordetzen, infusio bat igotzen, hotzeria zuenean. Karlos Zabala

Ez zuen, noski, dena sartzeko lekurik izan, eta nire **armairuetan** barreiaturik utzi zituen hainbat gauza, oraindik ere jaberik gabe, umezurtz jarraitzen dutenak. Joxean Agirre

Bien bitartean, herrixka sail hori, eliza zahar horiek, etxe zahar horiek, eta beren oroitzapen karga osoa, eta intxaur zurezko zoru eder bernizatuak, eta haietako **armairuetako** oihaleria ederra, eta haien leihoetako farfailak, gaur arte higatu gabe balio izan dutenak, horra non erretzen ikusten ditudan, Dunkerketik hasi eta Alsaziaraino. Josu Zabaleta

Nire aurretik pasatutako gaztearen karpeta gorde zuen militarrak **armairuetako** batean. Anjel Lertxundi

"Neskak eta mutilak beren **armairuetako** arroparik onenak jantzita daude", azaldu zuen Salonek. Berria - Kultura

"Nire" beirontziteria esmalte urdinezko puntutxo batez markaturik zegoen, beste **armairuetakoarekin** nahas ez nezan, eta "gurean hausketak ordaindu egiten direlako". Juan Garzia

Jenerazionez jenerazione, edo belaunaldietan zehar, mihiseak atxikitzen ziren **armairuetan**, pentzetako lore batzuek emanez behar zen usain ona. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure **armairu** atea jo zuten, Miepek ziztu egin zuen. Josu Zabaleta

Egoskari zakuak **armairu**-atearen atzean dagoen korridorean zeuden gakoetatik eskegita. Josu Zabaleta

Han, giltzarrapoz itxitako burdinazko **armairu** ilara handi batean, bat aukeratu, zabaldu eta bertatik poltsa bat atera du eta horrekin gela berean dagoen bainugelara sartu da. kandeletako batek su eman zien bere gainean zintzilik zegoen trajeko prakei eta sutan zegoen **armairu** barrua. Joxemari Iturralde

Mahaiaren gainean jarri zituztenak begi bistan zituen berriro, **armairu** barruan orain. Joxemari Urteaga

Beste behin, eta animalien inguruko kasuistikarekin jarraikiz, **armairu** barrutik zetozen txori baten bizpahiru nota gartsu aditu nituen txalet batean. Josetxo Azkona

Beharbada **armairu** barrenean errenkadan jarritako zapatei erreparatuko zien besteren batek. Joxean Agirre

Barruan oso erosoa ematen zuen ohe bat zegoen, haritzezko altzairu distiratsuak, bizi-bizi txinpartaka ari zen beheko sua, eta **armairu** gainean zintzilika. Iñaki Mendiguren

Baxerak garbitu nituen brauki, oheak berriz moldatu sakonki, **armairu** gainetako errautsa eri punttaz altxatu axolagabe. Itxaro Borda

Benetako lotura zegoen **armairu** barneko gauza haien eta ipuinen artean? ez zen kasualitate hutsa? Joxemari Urteaga

Gero, gainera, igelak zeuden; igelak, argia piztu orduko, **armairu** azpitik irten eta ihesi ateratzen ziren hara eta hona saltoka. Pello Lizarralde

Xoko mokoak miatuz, **armairu** zolak hustuz, horra denbora berean laguntza eder baten egiteko parada. Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zer egingo ote nuen nik arropa-**armairu** harekin? Joxan Elosegi

Hogei, hogeita hamar, berrogei urte geroago, hantxe nengoen ni jantzi-**armairu** irekiaren aurrean. Joxan Elosegi

Orobat, kez belztutako sutondo bat bazen bertan, baita txiki-txiki eginda zegoen horma-**armairu** bat eta burdinazko ohe bat ere, bi zatitan tolestatua. Lopez de Arana

Tira, nahiko errazak dira aurkitzeko, ikasleen biltegi-**armairuan** daude, eta hartzea besterik ez daukagu. Iñaki Mendiguren

4 (izenlagun eta izenondoekin)

Ohe bakoitzaren alboan zurezko **armairu** bat zegoen eta ohearen buru gainean bonbilla bat. bazegon intxaur-zurezko **armairu** bat, agian barroko goiztiarra, ziri ilun zoragarriz txertatua. Joseba Sarrionandia

Ez dago arrasto-izpirik Slytherinek noizbait erratzentzako **armairu** sekretu bat egin zuela esateko ere! Iñaki Mendiguren

Ohea ageri zen eta zurezko **armairu** altu bat. Joxemari Iturralde

Goiko **armairuan** ezkutatuak zeuden paketeko patata frijituak hartzera joan eta aulkitik erorita nonbait. Jasone Osoro

Sukaldeko **armairuan** giltzapetu zuen botila, badaezpada. Anton Garikano

Dendaren atzealdeko **armairuan** dauzkat botila eta largabista. Javi Cillero

Ate ondoko **armairu** tipia ireki, botila bat eta bi edalontzi atera, mahai gainean ezarri eta bere aulkira itzuli da. Berria - Kultura

Normandiar **armairu** baten pareko soina, horra, orduko nire esapidea. Jon Muñoz

Armairu landu bateko intxaur-zurezko atea berez ireki zen. Jose Morales

Nire ohe galantaz landa, besaulki batek, mahaitxoak, **armairu** beltz batek eta intentsitate erregulagarriko lanparak osatzen zuten altzaritegi urria. Aingeru Epaltza

Nire Hermes-Babya kendu didate eta **armairu** txurian giltzapetu, eguerdia delako, hau da, atseden-aldia. Joxe Austin Arrieta

Umeak ezkutaketan jolasten ziren han, intxaurrondozko **armairu** altuaren barruan eta ama Chantemesseren ohe eskergaren azpian. Karlos Zabala

Mutikoa ohean zegoen, **armairu** garaiez eta apaintze-mahaiez inguraturik. Lopez de Arana

Kantua bukatu zenean, tupustean eta erabakimen handiz, **armairu** ilun bat zabaldu zuen Anghiosek. Anjel Lertxundi

Han, **armairu** sakonaren ilunpean, topatu nuen berriro amak 1970 ean, lagun bat Berlinen ezkondu zeneko hartan, jantzi zuen soineko beltz txiki gerri baxua, gona kiribilkaria eta parpaila beltzez hornituriko mahukak. Joxan Elosegi

Dena txukun apaletan kokatzen laguntza bikaina eman zidan: sukaldekoak, arropak, garbikariak, zein bere **armairu** aproposean sailkatzen. Txillardegi

Metalezko **armairu** berde ilun batzuk zeuden militarraren atzean. Anjel Lertxundi

Iparraldeko herrietako izaera berezi hori duten beste emakume asko bezala, alkandora eta galtzerdiak bailiren, bihotza eta soina bi **armairu** ezberdinetan gordetzen dakien horietakoa da bera. Hasier Etxeberria

Txuspok bulegoetan erabili ohi ziren burdinazko **armairu** artxibatzaile horietako bi utzi dizkit. Harkaitz Cano

Atzean, **armairu** handi ispiludun bat. Josu Zabaleta

Andrea eserlekutik altxatu zen, ohetik leihora zebilen, **armairu** ispiluduneko eta komodako kaoba distiratsuan igartzen zituzten hauts izpiak kentzen zituen hatzez. Karlos Zabala

Aberats okitua da, **armairu** bete jantzi polit ditu, baina nagusi itxura ematen diote. Josu Zabaleta

Makurtuta zaude **armairu** irekiaren aurrean, ahoa ere irekitzen ari zara, esaldia egituratu duzu buruan, baina ez duzu ezer esan. Lourdes Oñederra

Gela zoragarri nahasia zegoen, artilez, paperez eta ezin aurkituzko gauzez leporaino zeuden **armairu** irekiez betea. Koro Navarro

5 ***armairutik atera***

Armairutik ateratzea prozesu bat da, lehenik egin behar duenarentzat, eta, ondoren, haren familiarentzat. Berria - Harian

Armairutik ateratzeaz asko hitz egiten da gaur egun, baina, fijatzen bazara, seropositiborik ez da ateratzen armairutik. Berria - Harian

Beharbada kopuru aldetik gutxi izan ziren halako gehiegikeriak sufritu zituztenak, baina aukera guztientzat zegoenez, ez zen inor ausartzen **armairutik ateratzen**. Berria - Euskal Herria

6 ***horma-armairu*** etxeko hormetan egiten den armario modukoa, hargin lanezkoa.

Orobat, kez belztutako sutondo bat bazen bertan, baita txiki-txiki eginda zegoen **horma**-armairu bat eta burdinazko ohe bat ere, bi zatitan tolestatua. Lopez de Arana

Bilkari etiketadunak kutxatilategitan sailkatuta zeuden, **horma**-armairuen barruan, jakintza-adarka sailkatuta. Jon Muñoz

Logela harrapakatu egin dute, **horma**-armairuak irekita eta hutsik daude. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

armairu barrenean (3); **armairu barruan** (15); **armairu batean** (26); **armairu bateko** (5); **armairu baten** (7); **armairu batetik** (3); **armairu gainean** (6); **armairu guztiak** (5); **armairu handi bat** (3); **armairu honetan** (3); **armairu horretan** (3); **armairu ilara** (3); **armairu ispiludun** (3); **armairu zahar** (5); **bere armairu** (3); **burdinazko armairu** (3); **zegoen armairu** (5); **zurezko armairu** (3)

armairua zabaldu zuen (3)

armairuan ezkutatu (3); **armairuan gorde zuen** (3); **armairuan gordeta** (3); **armairuan sartu** (6); **dago armairuan** (3); **eskailerapeko armairuan** (3); **sukaldeko armairuan** (4)

armairuaren atea (4); **armairuaren aurrean** (4); **armairuaren azpian** (3); **armairuaren gainean** (5); **armairuaren ondoan** (3); **zuen armairuaren** (4)

armairuko atea (11); **armairuko ateak** (5); **armairuko atearen** (3)

armairura joan (6)

zein armairutan (3)

armairutik atera (7); **atera zuen armairutik** (4); **nintzen armairutik** (3); **zituen armairutik** (3)

armairutxo bat (5)

izeneko agure armairutxoak (7)
izeneko agure armairutxoaren (3)

---

armairutxo *iz adkor* tamaina txikiko armairua.

Liburutegi ederraren bazter batean, **armairutxo** bat dago, giltza eta guzti. Anjel Lertxundi

Aitak langelan "botika" deitzen zion **armairutxo** bat zuen. Fernando Rey

Aterik gabeko **armairutxo** bat Taniaren arropa txukun jarria eta behar bezala tolestua zuena. Jon Muñoz

Fraide gazte batek, gaua baliatuz, **armairutxoa** zabaldu zuen, zer ikusiko, eta atzapartxoetan liburu ireki bat duen saguzar potolo bat, hegalak hedaturik eta apal batean eroso eserita. Anjel Lertxundi

Gero, giltzaz ixten du **armairutxoa**, eta badoa agudo aldameneko mahai batera, kandelaren argira, bertan irakurtzera. Josetxo Azkona

Han mahaia jartzeko aholkatu diot Peterri, zamau polit batekin, eta **armairutxoa** hormatik zintzilik jartzeko, orain mahaia daukan lekuan. Josu Zabaleta

Goiko **armairutxo** batean zegoen botila patxada handiz miatzeari ekin zion Mentxuk. Josu Landa

Liburu debekatuen **armairutxoa** baita. Anjel Lertxundi

Krema potetxoa itxi eta ispilu atzeko **armairutxoan** gorde du. Jokin Muñoz

Armairuak, ohe azpiak, harraskapeko **armairutxoak** ... Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
armairutxo bat (5)

---

armairutzar *iz adkor* tamaina handiko armairua.

Egunkaria utzi eta gaztaina koloreko **armairutzarrera** hurbildu nintzen, baina eskaileretan gora norbait zetorrela iruditurik, geldi-geldi egon nintzen hainbat denbora. Anjel Lertxundi

Une hartan ere opera-kantaria nuen ikusmin nagusi, Angelok **armairutzar** hartan gordetzen zituelakoan bere maitalearen argazkiak; haren oroigailuak; opera-kantariaren hilketaz eta Angeloren kontrako epaiketaz berri ematen zuten egunkari-zatiak. Anjel Lertxundi

---

armajantzi *(corpusean ez dago; ETCn **121** agerraldi; orobat **armadura** ETCn **1.005** agerraldi) iz* burdinazko atalezko soinekoa, antzinako gerra gizonek babesgarri gisa erabiltzen zutena. ik **armadura**.

Bere babeserako kasko bat (galae), eraztun bat (lorica hamata), **armajantzi** xafladun bat ("lorica segmentata") edo **armajantzi** ezkatadun bat (lorica squamata), eta laukizuzen formako ezkutu bat (scutum) zeramatzan. ETC-entziklopedia

Beranduago, arantza txikiagoak gehitzen hasi ziren, bihurtutako ahotik irteten zirenak, kolpeetan heltzea ziurtatzeko -ezkutu eta **armajantzietatik** desbideratua irtetea- kalte handiagoa egiteko baino. ETC-entziklopedia

Esaten denez, Bisen-toa V. mendea V. mende inguruan sartua izan zen. Garai horretan, Japoniak, Txinako Herri Errepublika Txinatik, armak, **armajantziak** eta forja teknikak inportatzen zituen. ETC-entziklopedia

Armajantzi honek ematen zien babesa gora-behera, erraza da infanteria talde itxi batek karga erraz xurgatuko zuela irudikatzea, **armajantziaren** pisuak soldaduari eta zaldiari eragiten zien mugimendu moteltasunaren ondorioz. ETC-entziklopedia

Orduan, Kiki iristen da Librako **armajantziarekin**, eta, **armajantzi** hau osatzen zuten armetako bat hartuz, zutabea suntsitzen du. ETC-entziklopedia

Koribanteak, **armajantzidun** gizonak dira, pandero, adar, txirula eta txindaten erritmoa jarraitzen dutenak, eta euren oinekin adierazten dute. ETC-entziklopedia

Gazteluak, **armajantzi** eta arma historikoen bilduma handi bat du. ETC-entziklopedia

Bostehun ta berrogei ate ditu, lantza lantzez eginiko harresiak, ezkutuekin eginiko teilatuak eta **armajantziekin** estalitako eserlekuak. ETC-entziklopedia

Sarumanen "warg" zaldizkoak, basatiak eta hilgarriak ziren, beldurtzeko moduko itxuradunak, euren **armajantziak**, gizaki eta zaldien larruazal eta hezur hondarrekin eta huargo ile adatsekin egiten baitziren. ETC-entziklopedia

Masakage bere **armajantzi** gorriagatik eta borrokan zuen trebeziagatik zen ezaguna. ETC-entziklopedia

---

armakide *iz* armada berekoa.

Nire batailoiko **armakide** batzuk. Alberto Ladron Arana

Nola da posible zu, Mogueime, konspirazio honetan sartuta egotea, zu, Santaremen nire **armakidea** izan zinena. Jon Alonso

Horrenbestez, ez zaie burutik pasatu ere eginen inor (eta are gutxiago beren **armakideetako** bat) lapurreta egitera joanen zaienik. Alberto Ladron Arana

Nire **armakideek** ia ez ninduten ezagutu ere egin, hain itxura penagarria nuen. Alberto Ladron Arana

Instrukzioak, zaintzaldiak, ofizialen aginduak, **armakide** zaharragoen ziriak eta trufa krudelak... horiek guztiak bizi izanak nituen lehenago Garrüzen. Aingeru Epaltza

Armakide aitadun andanari aditu diot etxetik alde egin eta aita begitik galdu zuten eguna izan zela beren bizian pozgarriena. Aingeru Epaltza

-Nire **armakide** komunistak zu eta ni bezalako gizakiak ziren, aita -erantzun nion, mindurik-. Alberto Ladron Arana

Espainiaratu ginen **armakide** taldeko guztiok, badaezpada ere, abizena aldatu genuen, balizko atziloketa edo erbesteratzea saihesteko. Alberto Ladron Arana

---

armalagun *iz* armada berekoa, armakidea.

Orthezen ere ez nituen neure **armalagunak** egun hartan bezainbat gorrotatu. Aingeru Epaltza

---

armamendu ik **armamentu**.

---

armamentista *izond* armamentuarena, armamentuari dagokiona.

Azken urteetan, 90eko urteen hasieran esaterako, hala izan da beti krisi ekonomikoa gertu izan den bakoitzean; alegia, AEBetako industria **armamentistaren** ustezko efektu berrelikatzailea dela medio -eta lobby horren indarraren eraginpean-, krisia gertu izan den bakoitzean, gerrarako hasi dela prestatzen Inperioa. Iñaki Heras

---

armamentistiko *izond* armamentuarena, armamentuari dagokiona.

Tamalez orain ere mito hori da nagusi AEBetan, lobby **armamentistikoaren** indarrak sortutako mito egokia. Iñaki Heras

Estrategia **armamentistikoaren** aldekoa da: Gastu militarra handituko da gastu sozialaren kontura. Berria - Euskal Herria

Estrategia **armamentistikoa** eta militarra bultzatzen du. Berria - Euskal Herria

Karrera **armamentistikoa** dugu eguneroko saihestezina irrati-telebistako albistegi eta egunkarietako azaletan: militarrek dauzkaten eskarmentu eta baliabideek gosea epe finko batean ezabatzeko baliatu beharko dute. Edorta Agirre

---

armamentu *(ETCn **719** agerraldi; orobat **armamendu** **167** agerraldi)* **1** *iz* armada baten edo talde armatu baten armen multzoa.

Arbuiagarria da estatu aberatsek urtero milaka milioi dolar gastatzea **armamentuan**, diru horrek azpigarapenaren kontra borrokatzeko balioko lukeen bitartean. Berria - Mundua

Kapitaina zen kuartel txikiko kargu gorena, eta hari eskatu zizkioten, keinu bidez, kamioiak, kanoiak, metrailetak, tankeak, fusilak... gordean zeukaten **armamendu** guztia. Karlos Linazasoro

Armamenduak gero eta-gehiago gostatzen dira munduan gaindi. Herria

Hola dira urteko konduak agertu: **armamenduetako** despendioak ehuneko zortziz emendatu direla 2003tik eta 2004 huntara, mila miliar dolar pasatuak baitira orai. Herria

Burgostik Donostiako borrokalekurantz tropak nahiz **armamentuak** arinago garraiatzeko aukera. Xabier Mendiguren Elizegi

Tankeak ateratzen zituzten etorbide zabal hustuetara, kanoiak, metrailadoreak, zeukaten **armamendu** ugari beldurgarria, erakustaldi harroak egiteko asmo huts-hutsarekin. Karlos Linazasoro

Siriak emandako **armamentu** astuna du, baita Libanoko kostan eta Bekaa haranean bunker moduko base militar handiak ere. Berria - Mundua

Hainbat estatuk diotenaren kontrara, Iranek **armamentu** nuklearrik ez duela lortu nahi berretsi zuen. Berria - Mundua

Egia esateko, "gerra hotza" propaganda mailako erantzuna zen **armamentu** fisikoen mailako erronkari. Iñaki Mendiguren

Zorionez, ez zakitek zer **armamentu** boteretsu daramagun. Edorta Jimenez

Israelen **armamentu** nuklear kopurua munduko seigarrena litekeela kalkulatu dute adituek. Berria - Mundua

Industria astunak, **armamentu** ikaragarria eta atomo-bonba izan arren (oso garestiak, jakina), gauza askotan India ez da bizi XXI gizaldian. Gotzon Garate

Gerrak eta ondoko berreraikuntzak beti izan dira negozio, batez ere **armamentu**, logistika eta azpiegitura arloko konpainientzat. Berria - Mundua

Europako **Armamentu** Agentzia. Berria - Mundua

Plutonioa bereiztea **armamentu** programa baterako erabil daitekeen "erabilera bikoitzeko" prozesuetako bat da. Berria - Mundua

Estatuen gastu korronteak (Nigeria), **armamentu**-gastuak (Irak), inbertsio ez errentagarriak (Aljeria) finantzatu zituztenean. Koro Navarro

Erronka horien guztien aurrean, hiru puntutan oinarritu zen administrazio errepublikarraren erantzuna: **armamentu**-lehiaketa berriz bultzatzea, kapitalaren errentagarritasuna goratzea eta Estatu Batuen eta munduko gainerako eskualdeen arteko finantza-fluxuak aldatzea. Koro Navarro

Armamentu lasterketan galtzaile behar zuen nahitaez. Josu Zabaleta

2 *armamentu lehia* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Aldeak alde, hainbat historialarik Gerra Hotzeko egoerarekin konparatu dute XX. mende hasierako **armamentu lehia** prebentiboa. ETC-prentsa

Hala, azpimarratu du "harreman eraikitzaileak" abiatuko dituela gainontzeko herrialdeekin, eta adierazi du ez duela nahi tentsiorik: "Ez dugu **armamentu lehiarik** baimenduko. ETC-prentsa

Erresistentziaren eboluzioak **armamentu-lehia** batean jartzen ditu gizakia eta mikroorganismoak, non irabazle bakarrak ez baitira bakterioak: industria farmazeutikoa ere irabazle da, farmako berriak diseinatzen baititu etengabe, farmako zaharragoen eraginkortasun-galera gainditzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *armamentun norgehiagoka* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Hori gutxi balitz, estatuak Gastu Publiko Militarra areagotzera behartzen ditu, Europa potentzia militar bilakatu nahian, **armamentu-norgehiagokan** murgilduz. ETC-prentsa

Europan berriro hasi da entzuten Gerra Hotzaren arotik ahaztua zirudien "**armamentu norgehiagoka**". ETC-prentsa

Horretarako, Bismarckek **armamentu-norgehiagoka** ez erabiltzea bultzatu zuen. XX. mendearen hasieran, ostera, Bismarckek boterea galdu eta Alemaniako enperadoreak "realpolitik"-a alboratu zuen "weltpolitik"-aren alde. Horren ondorioz, **armamentu-norgehiagokak** indarra hartu zuen. ETC-entziklopedia

Akordioek **armamentu-norgehiagoka** geldiarazten bazuten ere, egia esan, disuazio nuklearreko printzipioa ezarri nahi zuten: terrorezko oreka lortzea, gerra piztuz gero, elkarren suntsiketa bermatzeko. ETC-entziklopedia

---

armañak ik **armagnac**.

---

armario *(ETCn **129** agerraldi)* *iz* armairua.

Kutxan ez dago. **Armarioan** igual. Pablo Sastre

Handik gutxira logelara itzuli zen, hortzetako eskuila ahoan zuelarik: **armarioa** zabaldu, eta zer jantzi erabakitzen egon zen pixka batez, hortz-eskuila beti ahoan. Anjel Lertxundi

Sukaldeko **armarioa** trastez beteta egon arren, kafetera triste bat ere ez dago. Harkaitz Cano

Bi urte eskaseko haurrak, **armarioa** jotzen badu kunka! buruarekin, "ale! tta tta tta!" dundurikatuz ekinen dio atzera bere eskutto inozentez, kulpa **armario** gaizoak balu bezala. Patziku Perurena

Egin zituen pauso batzuk beste aldeko hormarantz, bandera **armario** atzean jarrita zegoen tokirantz, atera zuen hondakin artetik, eta zabaldu egin zuen: [...]. Josu Zabaleta

Asko sutondoan zeuden; besteak, pareta kontran, kristaletan argazki ilara zuen **armarioaren** ondoan. Josu Zabaleta

Horietan, zenbat puska izanen dire agrados, gabeziaz joak diren errores askorentzat; hainbertze jauntzi arropa, oraino estatu onean, moda aldatzeak zauritu dituenak, eta hor dagotzinak **armariotan**, pipien azkurri. Herria

---

armarri *iz* leinu, hiri eta kidekoen ezaugarriak irudikatzen dituen ezkutu modukoa, eskuarki harrizkoa eta etxearen ate nagusiaren gainean agertzen dena.

Armarria hor dago, baina urteek ezabatu egin dute erredola. Koldo Izagirre

Urte berean, Iraultza denboran beraz, kenarazi zituzten bizkondeen kaperan ziren noblezia markak, **armarriak** eta burdin zerradurak. Michel Oronoz

Aitaren heriotzaren nolakoa, haren ehorzketaren iluna -ez ikur, ez ezpata, ez **armarririk** hilobian, ez errito noblerik, ez zeremonia formalik- deiadarrez daude, zerutik lurrera hoska irudi, ditzadan kontu garbiak eska. Juan Garzia

-Nafarroako **armarria** -esan zuen halako batean Martinek-. Edorta Jimenez

Herriko etxeko **armarria** ikusi nuen berriro. Joseba Sarrionandia

Osasunako Peñen Federazioak aurreko astean Osasunako zuzendaritzak klubeko **armarria** aldatzeko hartutako erabakiaren aurkako sinadura bilketa hasi du. Berria - Kirola

Ostatuak non nahi, meson delakoak, eta ere etxe ederrak, beren **armarriekin**. Piarres Aintziart

Oinetxean, erdiko balkoi handiaren gainean, fundatzaileen **armarria** ageri zen, harearri gorrian landua. Koro Navarro

Cabanas Erausquin pintorea aipatuko zigun norbaitek, eta Francoren Erregimeneko pintore ofizialetakoa izan zela jakinaraziko zigun, hark asmatu zituela sinbolo frankistarik

ezagunenak: uztarri eta gezien ikur falangista eta Espainiako **armarria**. Bernardo Atxaga

Etxe bat ageri da, harrizko etxe handi balkoiduna, ikusi batean Espainiaren **armarritzat** hartu dudan blasoi batekin, hain arranditsu eta inperialki girgileztatua izaki. Koldo Izagirre

Ausartenek lokatzez zikindu zuten Habsburgotarren **armarria**. Aingeru Epaltza

Tratu honen sinadura harrian ere nahi nuke, eta, beraz, jauregia berreraikitzen duzunean, austriarren arrano inperiala nahi dut zure etxeko **armarriaren** parean. Joan Mari Irigoien

Faluako oihalean ageri zen **armarriari** begira lotu nintzen; gurutze handi bat, ertzak sutan zituena. Edorta Jimenez

Batere heraldikoa ez den **armarri** bat dago erdiko ate gainean trakets margotua. Koldo Izagirre

Plaza bidegurutze goibel bat da, elizaren pareta batek zenbait burdin hesi hormaturekin, Udaletxeak bere balkoi irtenekin eta herriaren **armarriak** burutzen duen atetzar batekin. Koro Navarro

Etxetzarraren leiho eta ateak gorriz margotuta daude [...], eta harrizko **armarri** bat ere badauka, bigarren eta hirugarren solairuaren artean. Hasier Etxeberria

Sarrerako atari nagusiaren gainean garai bateko **armarri** dotore eta ongi landua ikus zitekeen. Aitor Arana

Hernaniko karrika nagusia, dena erliebezko **armarriek**, bitxi-balkoiek, atari jaungoenekoek apaindua, egun almenen ordez amatxi-loreak dauzkan borta hondatu batek itxia, liburu bikaina dugu non irakurri, orrialdez orrialde, etxez etxe, lau mendetako arkitektura. Koldo Izagirre

Gogoan dut "laurak bat" **armarriarekin** gertatu zena ere, nola Jaurlaritzak bere ikur egin zuen, nola gero Nafar gobernuak kateak handik kentzeko esijitu zuen, hura usurpazio bidegabea zelakoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Kataluniarra zen Vigoren familia, eta haien **armarrian** *Ahulena babesten* dut ikurritza irakur zitekeen. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
armarri bat (3)
armarria ageri (3); **armarria ere** (3)
herriaren armarriak (4)
armarriari begira (3)

---

armarridun *izond* armarria duena, armarriz hornitua.

Zer esan nahi ote du herri **armarridun** batek? Koldo Izagirre

Harrizko etxe txikia zen, **armarriduna**, lorategi batez inguratua. Iban Zaldua

Erantzuna gustatu nonbait handikiari eta bere armadura bat, dena urregorrizkoa, Enperadorearen **armarriduna**, opari gisa emateko agindu zuen, armadurak gizon ausartentzat zetazko beloak emakume ederrentzat bezala zirela argudiatuz. Felipe Juaristi

---

armategi 1 *iz* armak gordetzen diren tokia.

Ilargiaren izpiek argiztaturik, haren begien aurrean barruti harresitu biribil bat ageri zen, bi katedral, hiru jauregi eta **armategi** bat barnean hartzen zituena. Karlos Zabala

Armategia zabaldu eta armak atera ditut, neure haserre-zigorra burutzeko. Elizen arteko biblia

Dorre berreraiki berrian Migelek sala ezarri zuen beheko oinean, beretako ganbera bigarrenean eta **armategia** hirugarrenean. Aingeru Epaltza

Ezekiasek ongi hartu zituen mandatariak eta bere gordailu guztiak, hango zilar, urre, lurrin eta usain-gozoko olioak, erakutsi zizkien, bai eta bere **armategia** eta bere altxortegian zituen ondasun guztiak ere.

Muturreko egoerara irits gintezke, zeinean bizirik iraungo lukeen bakarra **armategi** oso baten jabe geldituko baitzen, hainbeste arma eta erahiltzeko inor ez. Jon Alonso

Kulebrinak **armategitik** atera eta almenetara eraman. Aingeru Epaltza

-Hoa gotorlekuko **armategira** -esan zion-, eta ekarri handik Dorreko jantzia eta beharko dituan tresna guztiak. Agustin Otsoa

Polizia iturriek adierazi zutenez, gainera, **"armategi** txiki bat" ere bazuten furgonetan: 32 kilo amonal, sei kilo bolbora, granadak, bi kohete-jaurtigailu, Uzi motako pistola metrailadorea, lau kutxa kartutxo, bai eta lehergailuak egiteko bederatzi detonagailu eta tenporizadoreak ere. Berria - Euskal Herria

Gainera, AEBek esan zuten "inoizko **armategirik** handiena" topatu dutela hiri sunita horretan. Berria - Mundua

Munduko **armategi** nuklearrak eragin lezakeen energia baino hamar aldiz handiagoa askatu zuen asteroideak, eta ikaragarrizko txikizioa eragin zuen planetan. Javi Cillero

Iazko uztailean iragarri zuen erakundeak borroka armatuaren amaiera eta irailean desegin zituen **armategiak**. Berria - Mundua

Estatuak, garai hartan, **armategiak** eta intendentzia-zerbitzuak ez ezik, falta zituen banku zentrala, altxortegi publikoa eta funtzionario gaituak ere. Koro Navarro

Armada eta flota Patialan utzi zituen, eta bera joan zen, zenbait itsasontzirekin, itsasoa arakatzera, eta portuak, senaiak eta **armategitarako** erabili nahi zituen lekuak markatu zituen. Iñaki Iñurrieta

Egiaztatu dugu deuseztatutako armak IRAren **armategi** osoa osatzen dutela. Berria - Harian

Beste hipotesia ere, alegia sutea ustekabean izandako eztandaren ondorio izan zela, zauritua **armategi** -zulo batean zerbaitekin ari zelarik, ez zen oinarri sendoagokoa: Santa Klaran armen edo lehergaien ezkutalekua izatea ez zen inola ere operatiboa, funtzionala. Iñaki Iñurrieta

Alta ez dira ahanztekoak ohoin harrapakariak ere: ebats eta ebats ari direnak jatetxe, liburutegi eta **armategietan**, poliza bat berriz ezarri artean. Herria

2 irud/hed

Azken boladan, fisikarien eskutik, baditugu hainbat aparatu konplexu, **armategi** oso bat hortxe, ekografiaz eta erresonantzia magnetiko nuklearrez; horien bitartez, egundo ez bezalako zehatz eta garbi ikus dezakegu, oso goiztiar, fetua. Juan Garzia

Drosofilaren mutazioen **armategi** zahar guztia, horrenbestez, begi berri batzuen argitan ikusten da. Juan Garzia

Hots, **armategi** genetiko oso bat, estu lotua, uste izateko zenez, zelulen erdibitzea haien desberdintzearekin loturik zehazki erregulatzen duten geneen panopliarekin. Juan Garzia

Bonba atomikoa, Trumanen iritzian, zera zen: "Beste arma indartsu bat besterik ez, zuzentasunaren **armategian**". Berria - Mundua

---

armatu, arma(tu), armatzen **1** du *ad* armez hornitu edo tresnatu.

Gudaroste handia bildu dut eta gudu-ontziak **armatu**. Elizen arteko biblia

Zein eskuk **armatu** ditu zartatu diren bonbak? Herria

Ez zuten herria **armatu** nahi, burokrazia handia gainditu behar zen pistola zorritsu bat eskuratzeko. Koldo Izagirre

Polizia Saileko buruek, **armatu** gabeko gazte bat gerarazteko berrogeita bat tiro tiro gehiegi ez ote diren galdetu zaienean, zera erantzun dute. Harkaitz Cano

Egun berean, arratsaldeko 2 ordu eta erditan, mitralletez **armatu** S.S.ek korlerat jaustea manatzen daukute. Michel Oronoz

· Erabat desarmatu, garbitu, eta piezaz pieza **armatu** nuen. Jesus Mari Mendizabal

2 (era burutua izenondo gisa)

La Verna mendia erakutsi nahirik, berrogeita hamarretik gora mutil **armatu** bidali zituen haiekin, basa-piztietatik babesteko. Askoren artean

Atzetik gizon **armatu** eta hornituen karabana zetorren hautsak inguraturik, gerrarako aizkora handiak eskuetan. Agustin Otsoa

Bide eta xendrak soldadu saldoek zaindu arren, eta jende **armatu** nahiz soldaduak joan-jinka ibili arren, gizonek beren eginkizuna bete zuten. Elena Touyarou

Polizia **armatu** bat dago zaindari. Rafa Egiguren

Atean, ardura gabe begira, zaindari **armatu** batekin egin genuen topo, baina ez genuen oztoporik izan barrura sartzeko. Rafa Egiguren

Berrogei mila gudari **armatu** igaro ziren Jaunaren aurretik, gudurako prest, Jerikoko lautadarantz. David talde **armatu** baten buruzagi. Elizen arteko biblia

SSok garraio berezi bat antolatu genuen: tren **armatu** bat bidali genuen Vienara, eta aukerako zaindariak arduratu ziren trenak egin behar zuen bide osoa zaintzeaz. Alberto Ladron Arana

Euskaldun gazte bat, bere herriaren alde bizia eman duena, pazko bezperan indar **armatu** atzerritarrek bortizki eraila. Xabier Mendiguren Elizegi

Bestetan, berriz, azaltzen da gizon **armatu** andana bat eta -elurraren doitasunik gabe, noski- egunkari bat ixten du, jende errugabea eramaten du ziegetara han galdeketa bortitzak egitearren, krudelki tratatzen du krudelki trata daitekeen guztia, eta hor dugu berriro ere kaosa. Bernardo Atxaga

3 irud/hed

Era berean, gurutzeaz **armatu** zen, bere arima salbatzen gaituen habeari gomendatzeko eta munduaren hondamenetik salbu ateratzeko. Askoren artean

Naturak gizakia ez duenez gainerako animaliak bezala sentimenez bakarrik hornitu, baizik eta haien adimena pentsamenduz eta irizmenez ere **armatu** duenez, eta beste animalia guztiak bere mende jarri dituenez, etxe-eraikuntzatik pixkanaka beste arte eta diziplinetarantz aurreratzen joan zen eta, bizitza basati eta landatar hura utziz, zibilizazio eroso batera iritsi zen. Santiago Iruretagoiena

Bere burua berriz altxatzeko: kristautasunari uko egin behar dio; "moral" pagano batez behar du berriro **armatu**, hots, indarrarena eta garaipenarena bakarrik den "jaunen" moraltasun (kontzientzia) batez. Joxe Azurmendi

Ederra **armatu** zuen berriro ere. Anton Garikano

4 *adar armatu*

Ministroa 2001ean hil zuen FPLPren **adar armatuak**, Israelgo Armadak lehenago erakundeko idazkari nagusi Abu Ali Mustafa hil zuela mendekatzeko. Berria - Mundua

Bost urteren buruan, Turkiarekiko su-etena amaitutzat eman zuen ekaina hasieran Kurdistango Herri Defentsa Indarren (HPG) buruzagitzak, Kongra-Gelen **adar armatuak**. Berria - Mundua

"Demokrazia eta legearen alde gaudela berresten dugu eta hauteskunde hauek galarazteko edozein jokaerari arbuio diogu», zioen Al Aksako Martirien Brigadek eta Hamasen **adar armatu** Izzedin al Kassam Brigadek, besteak beste, izenpetutako ohar hark. Berria - Harian

Hernanikoa gertatu da PP, PSOE, EAJ, EA eta IU-EBren **adar armatuek**, Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak, egin dutenaren ondorioz. Berria - Euskal Herria

5 *beira armatu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Materiala Klasea, UNE 23-727-80ren arabera **Beira armatua**. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *borroka armatu*

Aldiz, iradokitzea gaitz horien guztien - eta gehiagoren - kontrako konponbidea **borroka armatua** baldin bazen horrek desastrea baizik ez zekarrela, bada, halakorik iradokitzea, 1989 an, ez zen gustuko kontua euskal literatura posible egiten duen jendaldean. Aingeru Epaltza

Abertzaleak ez batzeko aitzakia baizik ez dela **borroka armatuarena**, esan du aste honetan gure lagun Arnaldok. Hasier Etxeberria

Eta horretara daroan **borroka armatuan**. Txillardegi

Eztabaida, balioetatik pertsonetara, psikologiara lerratzen da; estrategiatik (**borroka armatua**) haren iturritzat ikusten den ideologiara; ekintzen balioespenetik taldeen eta pertsonen barnera, moralera, psikologiara, pentsamendura, kulturara. Joxe Azurmendi

Talde batzuek soilik **borroka armatua** jorratzen dute, eta beste batzuek politikoa. Berria - Mundua

Zilegia da pentsatzea ETAren **borroka armatuaren** amaierak "berez» etorri behar duela, "indarkeria oro bidegabea delako». Berria - Euskal Herria

Nolanahi ere, finean, **borroka armatua** ez dela egoki-ena, edo neuk egiten dakidanerako behintzat egoki-agoa dudala legezko lehian saiatzea, erabakitzen dut. Joxe Azurmendi

Hau da, bortizkeriaren teknikak eta baliabideak hainbestetaraino aldatu direla eta garatu non ez baita helburu politikorik haien suntsikortasun ahalmenari doakionik, ez **borroka armaturik** haien erabilpena justifika dezakeenik. Piarres Xarriton

Estatu Batuetako biztanleek ere, beren artean izandako **borroka armatuak** bukatu ondoren, eta han bizi ziren jatorrizko indio herri guztiak deuseztatu ondoren, demokrazia sendoa sortu zuten bizirik gelditu zirenen artean, gizaki bat boto bat lemaren alde eginez. Pello Salaburu

Gure gaurko gaiak, eta partikularki **borroka armatuaren** inguruan izan litezkeen gertakariak, eztabaidak eta gertakari ilunak. Ana Urkiza

7 *erakunde armatu*

Hispanitatearen Egunaren karietara "indar okupatzaileen aurka» **erakunde armatuak** joan den hilean "hanbat herritan» banatutako eskuorria agiri berritzat eman dute hainbat hedabidek. Berria - Euskal Herria

Erakunde armatua eskumen zeukan mendekatzeko: laburpen injustuak min egin zion Graxiri. Itxaro Borda

Idealizatuta geneukan **erakunde armatua**. Rafa Egiguren

Ez zuen behar bezain aintzat hartzen herriak eta langileek beren kabuz antolatzeko daukaten gaitasuna, eta, aldi berean, neurriz kanpo baloratzen zuen **erakunde armatuaren** papera. Rafa Egiguren

Bai, bazituan beste talde eta **erakunde armatu** zenbait orduan Euskal Herrian - miliak, polimiliak, autonomoak - baina okertzat jotzen genian haien iharduna. Xabier Montoia

baina izango zuen zerikusiren bat Txikiaren heriotzak herri txikiaren aldeko lanetik **erakunde armatura** igarotzerakoan, eta alde horretatik bete-betekoa zen ernamuinaren iragarpena. Xabier Mendiguren Elizegi

Ber garaian, NPA ('New People Army') **erakunde armatua** Marcosen soldadoen kontra borrokatzen ari zen ugarte zenbaitzuen oihan trinkoetan. Ramuntxo Etxeberri

Neure gain hartzen dut **erakunde armatu** bateko kide izanaren erantzukizuna. Agurtzane Juanena

Euskadi Ta Askatasuna (ETA) **erakunde armatua** sortu zen 1959an, zazpi euskal herrialdeen batasuna eta Euskal Herri beregaina ozen aldarrikatu zituena. Koldo Zuazo

--... Eta J.B.D. (Jarraitu Behar Da) talde bereiziko kidea delarik, aurreko **erakunde armatuaren** banaketa baten ostean. Joxemari Iturralde

Lehen egunetako pasioa hustu ordez, museoa eta **erakunde armatua** parekatuak dira Ingalaterrako kazetetan. Lutxo Egia

8 *gatazka armatu*

"Errusiako indar inperialista batzuk Georgia **gatazka armatu** batean sartzen saiatzen ari dira Hego Osetian», esan zuen atzo Mikhail Saakashvili Georgiako presidenteak. Berria - Mundua

Iaz, **gatazka armatuek** eragindako hondamendiak baino ugariagoak izan ziren naturak eragindakoak. Berria - Gaiak

Bertan Irlandako **gatazka armatua** agertuko zaigu, baita mafia istorioak eta lapurretak ere, denak nahasirik. Berria - Kultura

Ondorioz, estatuek ingurumena babesten dituzten nazioarteko eskubideen xedapenak errespetatu egin behar dituzte **gatazka armatuen** garaian eta, behar denaren arabera, ondoren garapenean lagundu egin behar dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Arriskuaren onarpentzat har liteke hori nahi bada, jokabide suizida baten esplizitaziotzat bestela, edo estatuarekiko **gatazka armatuak** lekarkiokeen paradero makurra ezagutzen zuelako seinaletzat. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskal presoen arazoa ere aipatu zuen eta "**gatazka armatua**» berriro agertu dela onartu zuen. Berria - Euskal Herria

Zenbait eremutan egoera hobetu da; esaterako, hainbat **gatazka armatu** bukatu, eta errefuxiatu talde handiak ez denak, ordea itzuli dira beren herri eta etxebizitzetara, Balkanetako errepubliketan, Ruandan eta Afganistanen kasu. Berria - Harian

9 *hormigoi armatu*

Carmen Blascok, erakusketaren antolatzaileetako batek, adierazi duenez, Anasagasti bera izan zen 20ko hamarkadako urteetan **hormigoi armatua** erabili zuen lehenetarikoa. Berria - Kultura

10 *indar armatu*

Mendebalde modernoko gerra-makinak eragindako porrotaren ondorioa mendebaldartzeko mugimendua izan zen goitik beherantz, **indar armatuen** birmoldatzearekin hasita. Iñaki Mendiguren

Haatik, AEBetako Estatu idazkari Colin Powellek argi eta garbi esan zuen herenegun Irakeko behin-behineko gobernuak ez duela eskuduntzarik izango soldadu estatubatuarrak osagai nagusi izango dituen nazioarteko **indar armatuari** agintzeko. Berria - Mundua

Espainiako **indar armatuek** alde egiteko eskatu dute Iruñean. Berria - Euskal Herria

Presidenteak **Indar Armatuen** barruko oreka hankaz gora jarri du, ez dago bakerik, eta haserre horrek estatu kolpe batera eraman dezake hainbat. Pako Aristi

Hona albistea, osorik: "Timorreko independentziaren aldeko gerrilla batek armak entregatu dizkio Australiako **indar armatuari** ". Iñigo Aranbarri

Australiako **indar armatua** " Australiako armada izango da, baina zer erakunde independentista da Augusto de Araujo Tara eta Alfredo Reinadorena? Iñigo Aranbarri

Funtsean gainerako kapitainek prestatu zutena bezalakoxea zen, iradokitzen zuten, begirune guztiarekin, bere gorentasunak **indar armatuen** mugimenduaren ordezkari guztiak bere aurrera etortzeko agin zezala. Jon Alonso

Beste asaldamendu bat izan zen hirian, eta zati-zati egingo zukeen jendetzak **indar armatuak** azaldu ez balira. Josu Zabaleta

Gerran parte hartuko luketen **indar armatuak** eratzea eskatzen dute, eta horrekin batera bosgarren kolumnistak - horrelaxe, bai. Edorta Jimenez

11 *talde armatu*

Eta edozein herri nahiz eskualdetako **talde armaturen** batek erasoko balie, baimena dute juduek haien haurrak eta emazteak ere hondatu, hil eta suntsitzeko eta haien ondasunak hartzeko. Elizen arteko biblia

Hamas **talde armatuak** 10 urteko su-etena proposatu dio Israeli. Berria - Mundua

ETArekin identifikatzeak sari berezia zuen: **talde armatuaren** botere ustez ahalguztidunekin bat egitea permititzen zuen. Joseba Zulaika

ETA ere orduan sortu zen, San Inazio egunean, geroago gure kezka, eta ez psikosi bakarrik, bihurtuko zen **talde armatua**. Pello Salaburu

Izan ere, ez zebiltzan bakarka, **talde armatuetan** baizik, edozein erasori aurre egiteko gertu. Karlos Zabala

Batzuek esaten ditek ETAren irautea frankismoaren ondorio bat dela, orduan nola ulertzen duk Euskal Herri frantsesean (azkar eta argi esatearren) **talde armatu** bat sortzea? Mikel Hernandez Abaitua

Geroxeago atera du ETAren gaia, ezagutzen dituela **talde armatu** horren nondik norakoak, eta Kolonbiako gerrilarekin alderatu du, hurbiltasunagatik are hobeto ezagutzen duena. Pako Aristi

Guri ere gertatu zaigu inoiz bidegurutze batean okerreko bidea hartzeagatik ez pasatzea donatista **talde armatua** ezkutuan gure zain zegoen lekutik, eta hala gertatu zen helmugara iritsi ginela itzulinguru luzea egin ondoren. Imanol Unzurrunzaga

Eta, ezin zuela haien artean fruiturik lortu eta, itzultzea erabaki zuenean, Sultanak **talde armatu** bat jarri zion, une hartan Damieta setiatzen ari zen kristauen gudarosteraino lagun ziezaion. Askoren artean

Azken orduotan beste zenbait atxiloketa izan dira, eta ematen duenez horien artean badira **talde armatuko** kideak edo kide ohiak, une honetan gaur egungo zuzendaritzak defendatzen duen azken jarrerarekin ados ez daudenak. Joxemari Iturralde

Baina, kasu honetan, urteak pasatu eta, egoeraren latzaz konturatzen gara: hondarrean, **talde armatuek** , euskara eta euskal herria zepo ilunetik atera aitzakiaz, euskaldunak erabaki-eskubideaz eta jende errespontsabilitateaz biluzi zituzten. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

armatu arabiar horiek (3); **armatu batean** (3); **armatu bateko kide** (4); **armatu bati** (3); **armatu batzuen** (4); **armatu berriak** (3); **armatu errepublikanoak** (4); **armatu gehiago** (3); **armatu guztiak** (3); **armatu guztiek** (4); **armatu horiek** (3); **armatu independentistako** (3); **armatu iraultzaile kolonbiarrak** (19); **armatu iraultzaile kolonbiarrek** (4); **armatu izzeddin al** (5); **armatu palestinarren** (3); **armatu talde** (3); **armatu zuen** (4); **berriro armatu** (3); **borroka armatu** (4); **ekintza armatu** (7); **erakunde armatu batekin** (3); **erakunde armatu palestinarrek** (5); **farc indar armatu** (24); **gatazka armatu** (4); **gizonezko armatu batzuek** (3); **gurdi armatu** (4); **hamasen adar armatu** (3); **indar armatu arrotzek** (3); **indar armatu iraultzaile** (30); **indar armatu iraultzaileak** (5); **kolonbiako indar armatu** (8); **mila gizon armatu** (3); **pertsona armatu** (4); **polizia armatu bat** (3); **talde armatu arabiar** (3); **talde armatu bat** (6); **talde armatu batek** (16); **talde armatu bateko** (5); **talde armatu baten** (5); **talde armatu batzuek** (3); **zuen talde armatu** (3)

alderdiaren adar armatua (3); **armatua alde batera** (5); **armatua amaitzeko** (3); **armatua behin betiko** (7); **armatua berriz** (3); **armatua bertan behera** (10); **armatua da** (4); **armatua den** (3); **armatua erakunde** (3); **armatua ere** (4); **armatua ez dela** (5); **armatua kaletik atera** (3); **armatua zen** (3); **batez armatua** (3); **bere adar armatua** (5); **bere borroka armatua** (3); **beso armatua** (3); **borroka armatua alde** (4); **borroka armatua behin** (3); **borroka armatua bertan** (5); **borroka armatua ez** (6); **borroka armatua utzi** (9); **borroka armatua uzteko** (5); **da borroka armatua** (7); **da gatazka armatua** (3); **den borroka armatua** (3); **dugu borroka armatua** (3); **ekinbide armatua** (5); **ekintza armatua** (3); **erresistentzia armatua** (4); **etak borroka armatua** (4); **etak jarduera armatua** (3); **etaren borroka armatua** (3); **etari jarduera armatua** (3); **indar armatua** (7); **irak borroka armatua** (5); **iraultza armatua** (3); **jarduera armatua bertan** (4); **kanpaina armatua** (5); **mugimendu armatua** (3); **politiko armatua** (3); **politiko eta armatua** (20); **politikoa eta armatua** (11); **talde armatua** (14)

agente armatuak (4); **aldeko langile armatuak** (6); **armatuak bere gain** (3); **armatuak bertan behera** (8); **armatuak egin** (3); **armatuak eragindako** (4); **armatuak erredakzioa** (3); **armatuak euskal** (4); **armatuak ez duela** (4); **armatuak hartu** (3); **armatuak jartzeko** (3); **armatuak su etena** (4); **armatuak ziren** (3); **batasuna talde armatuak** (3); **du erakunde armatuak** (15); **du talde armatuak** (3); **ekintza armatuak bertan** (8); **ekintzaile armatuak** (4); **erakunde armatuak ez** (4); **espainiako indar armatuak** (6); **etak ekintza armatuak** (3); **etaren borroka armatuak** (3); **gatazka armatuak** (12); **gizon armatuak** (13); **guardia armatuak** (3); **hamasen adar armatuak** (3); **irakeko indar armatuak** (4); **islamikoa erakunde armatuak** (3); **katalunian ekintza armatuak** (6); **langile armatuak pac** (3); **pertsona armatuak** (3); **polizia armatuak** (8); **talde armatuak su** (3); **zion erakunde armatuak** (3)

armatuan parte hartu (3); **borroka armatuan** (12)

borroka armatuarekiko (6)

armatuarekin lotura (4); **borroka armatuarekin** (8); **erakunde armatuarekin hitz** (3); **talde armatuarekin harremana** (4)

armatuaren aldeko (5); **armatuaren arabera** (3); **armatuaren aurka** (4); **armatuaren su** (3); **borroka armatuaren alde** (3); **borroka armatuaren amaiera** (4); **borroka armatuaren bidez** (5); **duen borroka armatuaren** (3); **erakunde armatuaren agiri** (3); **erresistentzia armatuaren** (4); **etaren jarduera armatuaren** (7); **gatazka armatuaren** (7); **herriko borroka armatuaren** (4); **jardun armatuaren** (3); **konfrontazio armatuaren gainetik** (3); **politiko eta armatuaren** (3)

borroka armatuarena (5)

erakunde armatuarentzat (3)

armatuari buruzko (4); **armatuari laguntza ematea** (8); **armatuari laguntza ematearen** (3); **armatuari tamil tigreek** (4); **armatuari uko** (3); **borroka armatuari berriz** (3); **borroka armatuari buruz** (5); **borroka armatuari ekin** (3); **borroka armatuari tamil** (4); **erakunde armatuari laguntza** (5); **gatazka armatuari** (3); **indar armatuari** (3); **politiko eta armatuari** (5); **talde armatuari laguntza** (11); **zioten borroka armatuari** (5)

borroka armatuaz (5); **erakunde armatuaz** (3)

espainiako indar armatuei (3); **talde armatuei** (11)

adar armatuek (3); **armatuek euskal herritik** (5); **armatuek ez** (3); **duten indar armatuek** (3); **erakunde armatuek** (3); **espainiako indar armatuek** (6); **gizon armatuek** (3); **indar armatuek euskal** (5)

erakunde armatuekin (4); **indar armatuekin** (3); **talde armatuekin** (8)

armatuen artean (5); **armatuen desarmea** (4); **armatuen etenaldi iraunkorra** (8); **ekintza armatuen etenaldi** (9); **ekintza armatuen etenaldia** (6); **erakunde armatuen** (10); **espainiako indar armatuen** (7); **etak ekintza armatuen** (3); **gatazka armatuen** (5); **indar armatuen arteko** (6); **talde armatuen** (18)

armatuetako kide (4); **armatuetako kideei** (3); **erakunde armatuetako** (5); **indar armatuetako** (11); **talde armatuetako** (4)

ekintza armatuetan (4); **talde armatuetan** (5)

ekintzaile armatuk (3); **hiru gizon armatuk** (3); **talde armatuk** (6)

adar armatuko (5); **armatuko buruzagi** (4); **armatuko kide edo** (3); **armatuko kide izatea** (33); **armatuko kide izateagatik** (3); **armatuko kidea izatea** (3); **armatuko ustezko** (4); **banda armatuko kide** (4); **batzordeak talde armatuko** (5); **erakunde armatuko kide** (23); **erakunde armatuko kideak** (5); **erresistentzia armatuko** (3); **kaeda talde armatuko** (3); **talde armatuko buru** (4); **talde armatuko burua** (3); **talde armatuko buruak** (3); **talde armatuko kide** (23); **talde armatuko kidea** (3); **talde armatuko kideak** (4)

borroka armatura (5)

armaturen bat (3); **erakunde armaturen** (3); **talde armaturen** (4)

armaturik egon (3); **armaturik ez** (4); **batez armaturik** (3); **borroka armaturik** (8); **ekintza armaturik** (3); **gatazka armaturik** (3); **guztiak armaturik** (3); **ongi armaturik** (4)

armatuta zeuden (3)

talde armatutik (3)

---

armatze *iz* armez hornitze edo tresnatzea.

Armatze errabia hori eztitzera edo ttipitzera doala munduan uste duena ameslari ederra da. Herria

---

armatzeke *adlag* armatu gabe.

Normalean, armaturik zein **armatzeke**, ez dira egundo zibil gisa aurkezten, nahiz eta eguneroko jiran hala diren: "Al Aksako ekintzaile bat eta hiru zibil hil ditu Israelek", irakurriko dugu egunotan. Iñigo Aranbarri

---

armazoi 1 *iz* zerbaiten euskarri zurruna osatzen duten pieza multzoa.

George Grayk betaurrekoak zeuzkak baina kristalik gabeak, **armazoia** bakarrik. Koro Navarro

Estalpe hauetan badago egur horniduraric: gaztaina morkotsak bezala lazturiko zuhaitz erroak, itsasontzi zatiak, ontzien **armazoiak**. Koldo Izagirre

Leihoetako **armazoiek** dar-dar egin zuten neguko haize-bolada batekin. Anton Garikano

Etxearen atzeko parteak sakonune batera jotzen zuen; beirazko galeria handi bat zeukan eta adreiluz egina zegoen, **armazoi** beltzarekin. Koro Navarro

Toldoak zabalduko dira popa aldean **armazoi** gogorraren gainean. Joseba Sarrionandia

Espainoleko irakaslearen betaurrekoak **armazoi** urrekarakoak ziren. Berria - Kultura

Betaurreko handi **armazoi** lodikoak zeramatzalako. bere Begi beltz zorrotzekin ingurua aztertzen zuen, ezpainak estuturik, bekozko ilunarekin, dortokazko **armazoi** beltzeko betaurrekoak erorixeak zituela bere sudurtzarraren gainean. Ramon Saizarbitoria

Aurrekoan bezala emakume bat azaldu zitzaigun, ingeles petoa izateko itxura zuena hura ere: adats motz zuria, galtzerdi koloredunak, betaurrekoak ere **armazoi** koloredunekoak eta koipe faltan legokeen ate baten karranka zirudien ahotsa. Ramon Saizarbitoria

Burdinazko **armazoiak**. Joseba Sarrionandia

Zurezko **armazoia** egin ondoren, ate-alderdiak, atalagak eta morroiloak ezarri zizkioten. Elizen arteko biblia

Eskua mantaleko poltsikoan sartu eta metalezko **armazoiko** betaurrekoak atera zituen. Ander Irizar

Bere begi beltz zorrotzekin ingurua aztertzen zuen, ezpainak estuturik, bekozko ilunarekin, dortokazko **armazoi** beltzeko betaurrekoak erorixeak zituela bere sudurtzarraren gainean. Fernando Rey

Armazoi horretan tornuan egindako bi ardatz jartzen ziren, eta ardatz horietan arieteari eusteko sokak lotzen ziren. Santiago Iruretagoiena

Gainean, karroaren **armazoian**, kaxa bat jarriko da ondo itsatsita. Santiago Iruretagoiena

Andres arratsaldez joaten zenean, brodatzeko **armazoia** magalean zuela aurkitzen zuen Lulu. Josu Zabaleta

Armazoiaren gainean lau puntel zituen, bakoitza bi habez osatua. Santiago Iruretagoiena

Begietan, urrezko **armazoiarekiko** betaurrekoak, garestiak itxuraz. Patxi Zubizarreta

2 irud/hed

Eta P-ren atzetik Q, testu honen quille edo gila, letraontzi honen **armazoia** alfabetoa dela gogorarazten didana. Bernardo Atxaga

Nori bururatu, gero, hain desberdinak izanik bi organismo horien garapenean parte hartzen duten prozesuak, **armazoi** genetiko berean oinarrituak zirenik. Juan Garzia

---

armazoidun *izlag* armazoia duena.

Itsas txakur aurpegia zeukan gizona ere gogoan dut: gizena zen, bibote beltz lodia zeukan eta urrezko **armazoidun** antiojoak. Urtzi Urrutikoetxea

---

armendariztar *izlag/iz* Armendaritzekoa, Armendaritzeko herritarra.

Aña Garat **armendariztar** eta Frantxua Lucu bitirindar makilariek; xiberotar xirulariek, Mixel Etxekopar eta hunen lagunek Arrangoitzen, irisartarra eta **Armendariztarra** nausitu dira beren beso onekin, eta beste zerbait ere. Junior mailean **armendariztarra** dugu xapelduna baina hor du hurbildik Zaharrer-Segiko putikoa ere, kondu hunek erakusten duen bezala. Herria

Iholdiar eta **armendariztar** guzieri Eguberri on eta Urteberri on! Herria

---

armendol ik **arbendol**.

---

armeniar 1 *izlag/izond/iz* Armeniakoa, Armeniari dagokiona; Armeniako herritarra.

Haren historiaren laburpena egin dit, interes berezia jarriz **armeniar** kristauek, Lehen Mundu Gerraren amaieran kontrolpean izan zutenean, turkiar musulmanen kontra egindako sarraskietan. Jon Arretxe

Amildegia ikusi eta kolpetik isiltzea erabaki zuen Komitas **armeniar** musikagilearen eta nazien genozidioa bizi eta idazten jarraitzea erabaki zuen Primo Leviren kasuak kontrajartzen ditu. Joxean Agirre

Mendebaldeko kristau-bizimodura konbertitu ziren Ziliziako **armeniar** monofisiten normandiar joerako herodianismoak orekatu zuen. Iñaki Mendiguren

Konforme, egia da hodeietara ohitu behar dugula, imajinatzen nuen esaten niola bizar griseko zahar **armeniarrari**. Fernando Rey

Lehenbizi neska **armeniar** batekin ezkondu zen, gero bey kurdu baten alaba hartu zuen emazte. Fernando Rey

Gizon zuhurrak ohartu behar luke grekoek eta kristau **armeniarrek** zein pozik imitatzen duten turkiar jantzia. Iñaki Mendiguren

Haien artean, **armeniarrak** zeuden, jantzi luzeak soinean eta mitra antzekoak buru estalgarri. Karlos Zabala

Beste **armeniarra** bezala, gizon dotorea da, atsegina, gizalegez jantzia eta beste mende batekoa ematen duena. Edorta Jimenez

Kaukaso inguruan gaude eta eskualdeotan herri nahasketa handia dago: turkiarrez gain, georgiarrak, azeriarrak, kurduak, **armeniarrak**. Jon Arretxe

Atatürk jenerala izan zen arrakastaren giltza, berak gidatu baitzuen greko, kurdu eta **armeniarren** aurkako borroka, aliatuek Turkiaren gaurko mugei onespena ematea lortu zuen arte. Jon Arretxe

Ostegun eta ostiraletan, **armeniarren** taberna batean igarotzen genuen arratsa. Juan Kruz Igerabide

2 ***armeniar alfabeto*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Armeniar alfabetoa ("Hayoc' grer" edota "Hayoc' aybowben") armeniera idazteko alfabeto bat da. 405ean Mesrop Mashtots armeniar hizkuntzalari eta elizgizonak garatu zuen. ETC-entziklopedia

Urteak **Armeniar alfabetoaren** lau letra bidez konposatzen dira. Ondorengo taulan adierazten da **Armeniar alfabetoaren** letren eta balore numerikoen arteko erlazioa: ETC-entziklopedia

3 ***armeniar egutegi*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Armeniar egutegia Armeniako egutegi tradizionala da. Egiptoar egutegia bezala Eguzki egutegian oinarrituta dagoen egutegia da. ETC-entziklopedia

4 ***armeniar etnia*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

1915ean Otomanoen agintaritzak agindu zuen **armeniar etniakoen** deportazioa Siriako basamortura, eta gosez eta gaixo hil ziren han, 1,5 milioi pertsona, armeniarrek esaten dutenez; ehunka milako gutxi, Turkiaren arabera. ETC-prentsa

Inguruetako herritar gehienak musulmanak ziren bezala, **armeniar etniakoak** kristauak ziren ia erabat. ETC-prentsa

Ara Malikian (Beirut, 1968) biolin-jotzailea da. Libanon **armeniar etniako** familia batean jaioa, Madrilen (Espainia) bizi da aspaldiko urteotan. ETC-entziklopedia

5 ***armeniar genozidio*** *(corpusean ez dago; ETCn **57** agerraldi)*

Armeniar genozidioa Otomandar Inperioko armeniarrak nahita eta sistematikoki suntsitzeko hilketak izan ziren, Lehen Mundu Gerraren garaian eta ondoren egindakoak. ETC-entziklopedia

'Ararat' ezingo da ikusi Turkian, AEBetako kongresuak **armeniar genozidioaren** inguruko ebazpena egin arte. ETC-prentsa

Hain justu, **armeniar genozidioa** izan zen bere estiloan lehena, programatua, antolatua, detaile eta beharrezko bitarteko guztiekin burutua. ETC-prentsa

Armeniar genozidioaren memoriala dagoen tontorreko bidea itxita dago, Erevanera etorritako milaka lagunek hartuta. ETC-prentsa

Turkian ez dago **armeniar genozidioa** hitz horiekin aipatzerik. ETC-prentsa

Aldi berean, **armeniar genozidioaren** urteurrena oroitzeko afixak ohikoak dira jatetxe eta dendetan. ETC-prentsa

Lehen Mundu Gerrarekin lotutako mendeurren ugarien dira azken aldian, Sarajevoko atentatuarena edo **armeniar genozidioarena** esaterako, edo datozen asteetan omenduko diren Somme eta Verdungo borrokaldietako hilak. ETC-prentsa

" **Armeniar genozidioaren** kontzientzia estatubatuarra" da Peter Balakian idazlea, askoren esanetan. ETC-prentsa

6 *armeniar kaio* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Lehen bazeuden beste kaio asko espezie honetan barruan sartuta, egun, berriz, adituen ustez, kaio hankahoria ("L. michahellis"), kaspiar kaioa ("L. cachinnans"), **armeniar kaioa** ("L. armenicus") edo Heuglin kaioa ("L. heuglini") espezie ezberdinak dira. ETC-entziklopedia

7 *armeniarren genozidio*

Armeniarren genozidioa gai minbera da Frantziarentzat, baina baita Turkia EBko kide izatea ere. Berria - Mundua

Iritzi publikoaren babesa handitzeko, Turkiari **armeniarren genozidioa** onartzeko eskatu dio. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **genozidio armeniarra** (4)
> **genozidio armeniarraren** (4)
> **armeniarren genozidioa** (3)

---

armeniera *iz* armeniarren hizkuntza indoeuropearra.

Hainbesteraino desitxuratu dute hizkuntza horietako batzuek jatorrizko indoeuropar hizkuntza, non beste hizkuntza tipo guztiz desberdintzat jo baititzakegu (ingelesa, **armeniera**, irlandera eta abar, adibidez). Isabel Arrigain

OK errusieraz, OK **armenieraz**, OK euskaraz, OK ingelesez, OK alemanez... Baina ez du esan nahi ondo edo horrelako zerbait, ez, ez. Edorta Jimenez

---

armenio *izond* armeniarra.

Gaur ere, ohi bezala, Rue de Quatres vents-era joateko asmo sendoa zuen, non Tari-Bari jatetxe **armenioa** zegoen. Matías Mujika

Dirua hartu, pixka batean egon, jaunak harmailak erabat igo arte, eta berak ere maila horiek igo eta zuzen Rue des Quatre Vents-era joan zen, Tari-Bari jatetxe erruso- **armeniora**, eta han geratu zen larunbat arratsera arte. Matías Mujika

---

armeria *iz* armategia; arma lantegia.

Garai hartan zabaldu zituen ateak Gobeo-Gebara-San Juan jauregiak, **Armeria** eta Arkeologia museo bihurtuta. Berria - Kultura

Bakearen aldekoek diotena berriz, badela gerla baino presagorik, eta hoberik, egiteko: hala-nola Saddamen **armeria** heien kontrolak eta kaltegarrienen suntsitzea, hori bailitake gizon txar eta lanjeros horri ahalak ttipitzea. Herria

Handik bueltan ofizio serio bat ikasi zuen, Eibarko **armeria** batean. Pako Aristi

Izan dute, zorigaitzez, beste ondoriorik oraino, Frantziako Elizaren "Lau Artikulu" haiek, ez bakarrik Frantzian, Espainian eta edozein estatutan, baina bai ere, hain aspaldian, bere **armeria**, diplomazia, urreria eta estatu jantzi ospetsuak ezin aldatuz dabilen Erromako Elizaren buruzagi askoren kaskoetan. Piarres Xarriton

---

armero *izond/iz* Eibar futbol taldearen jokalariak izendatzeko erabiltzen den hitza.

Aukera onenaren zain gelditu beharrean jokalarien bila jo zuen klub **armeroak**. Berria - Kirola

Talde **armeroaren** historian gordeko den partida, Madrilen bertan ikusi nahi duten zaleak asko dira, eta hori agerian gelditu da Kopako partida ikusi ahal izateko antolatu diren bidaiek izan duten harreran. Berria - Kirola

Armeroak gogotsu zelairatu ziren, baloia oinetan zutenean Gaspercicen ate ingurura gerturatzen saiatuz. Berria - Kirola

Teneriferen kontra sailkapenaren buruari eutsi nahi diote **armeroek**. Berria - Kirola

Alavesek, bitartean, hamaika jokalarirekin zegoenean ere atzean urduritasun handia erakutsi zuen **armeroen** presioaren aurrean. Berria - Kirola

Patua ezin krudelagoa izan zen atzo gauez **armeroentzat**. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **talde armeroak** (7)
> **talde armeroaren** (6)

---

armetan *(orobat **armatan**)* **1** *adlag* armak harturik.

Plan horri Alderdi Komunistak bortizki egin zion aurka, Juntaren aitzi **armetan** altxatuz. Edorta Jimenez

"Profetaren zerbitzari handia," esan zion Txibuk Inperialeko Xeikak Armada Garaitezineko Mamuxari, "zenbat soldadu garaitezin dauzkagu **armetan**?". Xabier Olarra

Errusian, Armada Gorriak egin dio ongi-etorria, Colombian ere soldadoek **armetan**. Herria

Aitaren izpiritua **armatan**! Juan Garzia

-Aski da Jainkoak ulertzea, emazte -Santxok erantzun- bera da-eta gauza guztien ulertzaile, eta bego hau hemen horrelaxe; eta ohar, arrebatxo, hiru egunotan astoaren ardura bereizi bat behar duzula, **armetan** jartzeko prest egon dadin. Patxi Ezkiaga

Zeren, Estatu bat, pertsona bat denez, ezin da atera **armetan** bere buruaren kontra. Esteban Antxustegi

Filiperi esker -zenbat koroa hark buruan, zenbat bandera haizetan, zenbat gizon **armetan**! Edorta Jimenez

Utziko ditu elgarretara daitezen muga ondoan, Espainiara **armetan** joaiteko gisan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 armetan/armatan altxatu

Karimov presidentearen neurri ekonomiko eta politikoek herritar askoren haserrea piztu dute; batzuk **armetan altxatu** dira. Berria - Harian

Plan horri Alderdi Komunistak bortizki egin zion aurka, Juntaren aitzi **armetan altxatuz**. Edorta Jimenez

Egun gutxiren buruan, gatazka sortu eta **armetan altxa** ziren elkarren kontra: herritarrak nobleen aurka oldartu ziren, eta nobleak, ezpata eskuan, herritarren aurka. Askoren artean

-Aita Rentería **armatan altxatu** da. Juan Garzia

armiarma 1 *iz* animalia artropodoa, buruaren eta sabelaldearen artean mehargune nabaria duena, eta sabelaldeari darion gai likatsuaz intsektuak harrapatzeko sare bat egiten duena. ik **marasma**.

Armiarma zegoen bizi nintzen etxean, amarauna zaintzen. Felipe Juaristi

Orduan damutu egin zen jainkosa eta Arakneri eusten saiatu zen, sokak ito ez zezan, eta **armiarma** bihurtu zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Armiarma da arkitektorik jeloskorrena, euli batek bere eraikin kostata egindakoa zapaldu orduko, **armiarmak** euliarengana jotzen baitu, eta hil ondoren jan. Felipe Juaristi

Armiarma bezain higuingarri ez, tximeleta bezain erakargarri ere ez. Juan Garzia

Armiarma lurrean ikusten baduzu, hogei ta lau ordu barru euria. imajina dezaket nola pasatzen den **armiarma** bat bere ondotik eta nola zanpatzen duen **armiarma** hori, behar den baino indar handiagoz eta amorru apur batez. Pello Zabala

Gizon bat **armiarmaren** antzera zintzilik zegoen leiho baten parean, oso altu. Juan Kruz Igerabide

Gure asabek beldur zioten **armiarmari** : Bere tokitik ateratzen bazen, edo berri txarren bat, edo euria. Pello Zabala

Harryren makilaren argiaz, bidezidorrean aurrera zihoan **armiarmen** ilara etengabeari jarraitu zioten. Iñaki Mendiguren

Armiarmak eulia nola, hala erakarri din kardinalak harrapakina bere farfailaren amaraunera. Anjel Lertxundi

Zaldien tamainako **armiarmak** , zortzi begikoak, zortzi hankakoak, beltzak, iletsuak, erraldoiak. Iñaki Mendiguren

Handik oso gertu, bere gainera altxatuta, **armiarmen** ilara bat zegoen, horma sendo bat osatuz, klaskaka, begi-pila bat buru beltz itsusietan dir-dir. Iñaki Mendiguren

Mende horietan gaixotasun hau harrapatutako kasu asko aipatzen ziren, udaberritik aurrera ia beti, eta **armiarmaren** helduak sortua zela pentsatu ohi zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Literatur atari aktibo, erakargarri eta interesgarria jarri du Susak gizartearen eskura, **"armiarmaren** sarea denen artean josi behar baitugu". Berria - Kultura

Leihoetatik **armiarmek** sare finak josi Jasone Osoro

Osaba Iturrioz zuzen dago, oinarri-oinarrian, barrez esaten duenean, **armiarmek** euliak jaten badituzte, izadiaren bikaintasuna baino ez duela adierazten horrek. Josu Zabaleta

Heu ere **armiarmarena** egiten ari haiz, nire inguruan amarauna heda eta heda. Anjel Lertxundi

Eraztunean, **armiarma** baten irudia. Javi Cillero

Emakume gaztea zen, jatorriz asiarra, eta **armiarma** baten irudia eraztun bati atxikia zuena. Javi Cillero

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Europako leku askotan, baina klima mediterranearra dutenetan batik bat, badira Lycosa generoko **armiarma** handi, iletsu eta saltari batzuk, Taranto inguruetan beste zenbait lekutan baino ugariagoak zirelakoan tarantula izenarekin bataiatuak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Armiarma handi batzuk zebiltzan lurrean lasterka. Iñaki Mendiguren

Bai, tarantula, **armiarma** erraldoia! Xabier Paya

Inurritegiak dozenaka azaltzen ziren, zomorro errukarriak aztoraturik; larre-saguak korrika bizian nire ondotxotik, ziraunak, **armiarma** erraldoiak, zizareak, satorrak, bareak, matxinsaltoak, erletzarrak, ezparak, euli-mandoak, ehunzangoak, kakalardoak, barraskiloak, mantalgorriak, kilkerrak, txirritak. Joxean Sagaztizabal

Nagusiak bazter guztietara luzatzen zuen bere begirada zorrotza, eta, **armiarma** nekaezinaren antzera, batera eta bestera aritzen zen etengabe, etxaldea bere amarauna bailuen, arazoturik baina erne beti. Jose Morales

Entzungailua telefonora bota zuen, **armiarma** pozoitsu bat botako balu bezala. Iñaki Mendiguren

Kalifornian ikusten diren **armiarma** biribil horietako bat zen, tarantularen tamainakoa gutxi gorabehera eta ia haiek bezain arriskutsua.Onddo zurizten haztegi eta **armiarma** iheskorren gordeleku. Xabier Olarra

-Inoiz ez -esan zuen **armiarma** zaharrak ahots latzez-. Iñaki Mendiguren

Zeren oihaneko edozein lekutan eta edozein partetan ezkuta baitzitekeen mandatari gaixto bat -hemen suge pozointsu bat, hor **armiarma** are pozointsuago bat, eta han piztia-, heriotzaren mandatua noiznahi-den zabal zezakeena. Joan Mari Irigoien

Aldian behin, haurraren soiltasuna urratu ahala, susmatzen genituen inguruan, ezkutuko **armiarma** batenak bailiran, gogortasunaren, erruki ezaren edo krudelkeriaren hariak, eta izutu ere egiten ginen heriotza aurrez aurre jartzen zigutenean. Bernardo Atxaga

3 (hitz elkartuetan)

Armiarma -hariak paretik kentzen nola, halaxe ari naiz nire burutazioei bidea zabaltzen. Anjel Lertxundi

Soin atalak, gorputzaren kontra estuturik, mahatsondoaren aihenak bezalaxe bihurriturik hazi zitzaizkion, neurrigabe luzatu zitzaizkion, **armiarma** hankak bezalako behatzez bukatuak. Josu Zabaleta

Hutsik zegoen korridorean ezker-eskuin eroa bezala begiratu eta **armiarma** -ilara bat ikusi zuen, ziztu bizian gorpuetatik ihesi. Iñaki Mendiguren

Armiarma -pare bat erori zen sabaitik. Iñaki Mendiguren

Ehunka intsektu, zizare eta **armiarma** espezie ere desagertzeko arrisku larrian daude. Berria - Gaiak

Nagoen gainetik, txalupatxoek beteriko badiak ur-**armiarmaz** beteriko putzua ematen du. Koldo Izagirre

Nagoen gainetik, txalupatxoek beteriko badiak ur-**armiarmaz** beteriko putzua ematen du. Koldo Izagirre

4 (hitz elkartuetan, irud/hed)

Enbarazu egiten ziela sumatzen zuen; horrek latzago, garratzago bihurtzen zuen, bere gona eroriarekin, bere **armiarma** beso handiekin, eskuak mantalaren azpian antxumaturik zituela. Karlos Zabala

Kasetoi lan luze urreztatu eta guztiz apaindu batek ertza ematen zion ispilu karratu eskerga bati, zeinaren erditik lau besoko **armiarma** lanpara bat zintzilik baitzegoen. Karlos Zabala

Armiarma -argiak ageri ziren sabaian zintzilik, baita egun erabiltzen direnen moduko tapizak ere. Joxan Elosegi

5 ***argi armiarma*** armiarma lanpara, beso asko dituena.

Guztietan keak belzturiko sabai berdina; guztietan **argi-armiarma** kedartu berdina, eta, handik goitik zintzilik, beiraki ugari. Jose Morales

Sabaiaren erdian **argi-armiarma** bat zegoen, artile zarpailezko zorro batean bildurik, zeinari seda-harraren kuskuaren antza ematen baitzion hauts ugariak. Jose Morales

Argi-armiarmak sabaitik dilindan, nerabeendako arropa-denda batean baino ispilu gehiago bazterretan. Aingeru Epaltza

Han-hemen, **argi-armiarmetan** eta hormetan, etxeko lanparatxo bakanak piztu zituzten. Jose Morales

6 ***armiarma-arrain*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Armiarma-arrain Xabiroi arrunta, " **Armiarma-arrain** Trachinus araneus" Georges Cuvier Cuvier, 1829. ETC-entziklopedia

7 ***armiarma lanpara*** sabaitik zintzilik jartzen den lanpara, beso asko dituena.

Kasetoi lan luze urreztatu eta guztiz apaindu batek ertza ematen zion ispilu karratu eskerga bati, zeinaren erditik lau besoko **armiarma lanpara** bat zintzilik baitzegoen. Karlos Zabala

Errezel gris astunak mugitzen hasten dira, are sabaiko **armiarma-lanpara** ere, ekaitzak jotako itsasontzietakoak bezala. Xabier Olarra

8 ***armiarma sare*** armiarmak, sortzen duen hari modukoarekin, eratzen duen sarea. ik**amaraun**.

Sabaian, euli-kume bat **armiarma-sare** batean trabatu da, astindu eta borrokan dabil. Itziar Otegi

Onddo txiki-txikiek hartzen zuten osorik kanpoaldea, erlaitzetik zabaltzen zen **armiarma-sare** mehe bat bailiran. Koro Navarro

-Urrutiago dago -esan nion-; baina begira **armiarma-sare** zuri horiek, nola distiratzen duten kobazuloko hormetan. Koro Navarro

Highgate-ko kanposantuko hilarriak nekuskien sastrakak estaliak, kripten burdinazko ate herdoilduak eta **armiarma sare** grisak. Ramon Saizarbitoria

Ukuilu eta ezkaratze, mandio eta ganbara, **armiarma-sare** franko bazen bazterretan garai batean. sarearen berezko izaerak komeni ez zaizkizun bideekin "tenta" zaitzake, WWW **armiarma-sare** bat baita, hainbat gunek osaturiko eta mugarik gabe nabigatzen lagatzen duen mundu konplexua. gazte batek **armiarma sarea** tatuatu du buru ile-

moztuan. Pello Zabala

Nire beso luzeez puskatzen nituen, **armiarma sareak** balira bezala. Monika Etxebarria

Armiarma-sareak zokoetan, leiho-kantoietan. Pako Aristi

Ezin nintzen mugitu: paralizatuak nituen gihar guztiak, **armiarma-sarean** erori den eulia baino harrapatuago; hantxe geldi, gizonaren begirada nirean. Anjel Lertxundi

Eta berehala tintazko lerro fin batzuk hasi ziren agertzen, **armiarma-sarearen** harien tankerakoak, Georgeren makila magikoak ukitu zuen puntutik. Iñaki Mendiguren

Numeroen **armiarma sarean** galdutako eulibeltz errukarria dirudi. Patziku Perurena

Aurrean zeukan aurpegi gazte haren oroitzapena garuneko artxibategietako **armiarma-sareeen** artetik erreskatatu nahi balu bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Ohean zetzan gizonari behatzen zion, perfusioaren hariek **armiarma sarea** ehuten ziotela. Itxaro Borda

Armiarma sarerik gabeko sabai-izkinak. Iban Zaldua

9 ***armiarma tximino*** *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Suedian eta Norvegian kanela opil, a mahuka, elefante belarri... deritzote; Alemanian, **armiarma tximino**; Finlandian, katu isats; Holandan, tximino isats; Italian, barraskilo; Frantzian, arrobe eta barraskilo ttipi; Espainian, arroba; Ingalaterran, at. ETC-prentsa

Udaren erdialdera edo, konturatu nintzen kaiola bateko **armiarma-tximino** eme bat begira-begira neukala. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala da, orobat, primate hostojale batzuetan ere -lemur, lori eta **armiarma-tximinoetan**, kasu-. ETC-zientzia, zuzenbidea

Armiarma tximinoa edo "Ateles" (izen lokaletan maquisapa, marimonda, koatá edo atele), garun burmuin handia eta Haplorrhini mundu zaharreko tximinoen antzekoa den tximino amerikarren generoa da. ETC-entziklopedia

Amazoniako oihaneko zuhaitzak intsektuz, zuhaitz-igelez eta hainbat motaz beteta daude; azken hauen artean **armiarma tximinoak**, tximino iletsuak, kaputxinoak eta titiak daude. ETC-entziklopedia

10 ***armiarma-zeta*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Armiarma-zeta armiarmek berez iruten duten proteina-zuntza da. ETC-entziklopedia

Antza denez, posible izango da, ikerlarien arabera, eskala handian harrak ekoiztea eta haiengandik **armiarma-zeta** eskuratzea. ETC-prentsa

11 ***itsas armiarma*** itsas krustazeoa, armiarmaren eitea duena.

Goizetan, itsasoak behera egiten zuenean, harkaitzetako zuloak atzapar iletsuko itsas **armiarmaz**, malba-koloreko itsas izar likaz eta sabelalde gorriko karramarroz betetzen ziren. Xabier Olarra

12 ***tximino armiarma***

Jauregiak berak ere, Byronen **tximino armiarma**-lanparetatik zintzilikatuekin eta altzari napolitar apainduraz beteegien artean hara eta hona dabiltzan indioilarrekin, badu denboraz kanpokoaren eta dekadentziaren arteko nahastura doi hori. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argi armiarma (5); **armiarma bat** (9); **armiarma baten** (4); **armiarma erraldoi bat** (3); **armiarma erraldoiak** (3); **armiarma handi** (4); **armiarma lanpara bat** (3); **armiarma sare bat** (4); **armiarma sarea** (10); **armiarma sareak** (6); **armiarma sarean** (6); **armiarma sareen** (5)

---

armiarmasare **ik armiarma 7**.

---

armiarmatxo *iz adkor* armiarma txikia.

Hots egiten zidan beraren lanaulkitik **armiarmatxo** bat uxatzeko (ez nuen, ordea, akabatu behar, baizik eta irazki-pisaontzi batean ezarri eta kanpora loresailera atera), eta horrek prestu eta kementsu sentiarazten ninduen, Herkules Hidraren aurrean bezala, Juan Garzia

---

armiarmatzar *iz adkor* armiarma handia.

Jakin nahi baduzu, hiru urte nituenean, Fredek nire pelutxezko hartza **armiarmatzar** zikin bihurtu zidan, bere jostailuzko erratza apurtu niolako. Iñaki Mendiguren

---

armika *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)* **1** *iz* Apiaceae familiako landarea, eztulerako sendabelar gisa erabilitakoa *(Eryngium campestre)*.

Armika ("Eryngium campestre") Apiaceae familiako landarea da, erdialdeko eta hegoaldeko Europan jatorria duena. ETC-entziklopedia

Nostradamus handiak **armikaz** jengibrea egiten zuen XVI.eko garai hartan eraiki ziren lehen baserrietan, dolare-baserrietan, sagarrondoen emana jakinetik urrutira gabe, atari eguteretan nonbait mertxikondoak edo mertxika arbolak (Prunus persica) izango ziren. ETC-prentsa

Salsola kali (mahats-txikia) edota Eryngium campestre (**armika** edo buruiska), hazia helduta haize bolada zakarren baten zain izaten dira, lepoa moztu eta haizearen airea aire-aire dantzatuz landare osoa pirrilaka eraman dezan, haziak barreiatuz. ETC-prentsa

2 ***itsas armika*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Itsas armika ("Eryngium maritimum") Apiaceae familiako landarea da, Europako kostaldetan jatorria duena. Elisabetar aroan, bere sustraiak afrodisiakoak zirela uste zuten. ETC-entziklopedia

Kresaletan **itsas-armika** (Eryngium maritimum) eta mendietan armika (Eryngium campestre) eta, inon izenik topatu ez diodan, Eryngium bourgatii, zeini baduenaren alde azkazal bat jokatu-eta, azaltzen den artean neronek jartzen diot: armika urdina. ETC-prentsa

---

armilar *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* **1** *izond* esferez mintzatuz, uztaiz osatutakoa.

Uste denez Eratostenesek asmatu zuen **armilar** esfera, K.a. 255 inguruan eta XVII. mendean oraindik erabiltzen zena. ETC-entziklopedia

2 ***esfera armilar*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Campanusek eraiki zuen beste tresna bat **esfera armilar** mota bat izan zen, planeten posizioa determinatzera zuzendua. ETC-literatura, saiakera

Aritmetika, matematika eta astronomia klasikoaren ikerketak bultzatu zituen, Europan abakoa eta **esfera armilarra** berriro sartuz. ETC-entziklopedia

---

armindu, **armintzen 1** du *ad* bere onetik atera.

-Luziak besotik heldu dio **armindurik**. Joxemari Iturralde

2 (era burutua izenlagun gisa)

Min giro horretan, bere "betiko ordena" etsian zemaitua sentitzen den meneko "txintxoak", edo "betiko ordena" gotorraren abokatu **arminduak** Joxe Azurmendi

---

armintzar *iz* Armintzako biztanlea.

Garaipen honek, **armintzarraren** seigarrena hain zuzen, sailkatze multzoko lidertza emango dio Gaubekari. Berria - Kirola

Armintzarrarekin batera Pablo Fustok eta Juan Rekaldek ere lortu dute finalerdietarako sailkatzea. Berria - Kirola

Biak elkartu zituen norgehiagokan **armintzarra** izan zen nagusi. Berria - Kirola

Aurreikuspenek Gaubeka nabarmentzen dute faborito; izan ere, **armintzarrak** ez du partidarik galdu zortzi t'erdiko txapelketaren bi aldietan. Berria - Kirola

---

armistizio *iz* gerra egoeran adosten den borroka-etena.

Armistizioak 11 urteko gerra zibilari bukaera eman zion. Berria - Mundua

Armistizioa ezartzeko saikera guztiak porrot egingo dute. Berria - Mundua

Geroago **armistizioa** ailegatu zen, **armistizioaren** bozkario laburra eta zoramena; eta hurrena, bi egun geroago, alemaniarrak. Fernando Rey

Iritsi zen **armistizioa**. Joxean Sagaztizabal

Armistizioa irailaren 3an sinatu zen, ingelesak Italian lehorreratu ziren egun berean. Josu Zabaleta

Atzoko egunean 1953an, Panmumjon mugaldeko hirian sinatu zuten **armistizioa** bi Koreek. Berria - Mundua

1918an, Parisen, Frantzia guztiak **armistizioa**, I. Mundu Gerraren amaiera ospatzen zuen bitartean, bi segiziok idazle banaren hilkutxei jarraitzen diete banderaz betetako karriketatik. Iñigo Aranbarri

Beraien ospakizunak ez ziren uztailaren 4koa, *Guy Fawkes* Eguna edo **Armistizioaren** Eguna117, baizik eta nekazaritza-urte errepikakorreko egun gorri eta beltzak, ez historikoak. Iñaki Mendiguren

Horthyk abuztuan Sztójay kendu eta Géza Lakatós jarri zuen gobernuburu, **armistizioa** presta zezan. Urtzi Urrutikoetxea

Orain dela hiru egun sinatu da **armistizioa**. Josu Zabaleta

Armistizioaren ondoko erbestealdian Saint-Exupéryk erbesteratuen artean ezagutu zituen liskar, sesio, gorroto, azpijoko eta elkarri jarritako oztopoak. Josu Zabaleta

Armistizio-eguna, 1918. Iñaki Mendiguren

Non zeunden zu **armistizioko** gauean, Jimmy? Lopez de Arana

SPLAk eta Sudango Gobernuak bien aldeko **armistiziorako** protokoloa sinatuko dute gaur Kenian. Berria - Mundua

---

armiztiza ik **armistizio**.

---

armonia[1] *iz adkor* zarata, iskanbila.

Larritasuna gainera etortzen zitzaidan eta braust jaikitzen nintzen etxe luze hartan korrika jendearen bila; ama edo izeba beti zeuden inguruan, eta eguerdian bilduko zen tropela: aitona, aita, anai-arrebak, txakurra, sesioak eta **armonia**. Pako Aristi

Pitbullek **armonia** ederra egiten zuen. Gotzon Garate

Zerritegia zikina edo bustia badago, **armonian** hasten dira, gurrun-gurrun. Gotzon Garate

Behia hala ikusi bezain pronto, amona Genobeba erdilasterka han etorri zen hankutsik, soroa behera, **armonian**: [...]. Patziku Perurena

Txolarreen ehiztari dabilen belatzari jarri diot arreta, Marioren **armoni** hotsa eteten saiatu gabe. Jokin Urain

- **Armonia**, gure etxekoa maistrak tximetatik helduta eskolatik bota ninduenean. Arantxa Iturbe

---

armonia[2] ik **harmonia**.

---

armonian *adlag* marmar eginez, liskartsu.

Janontzitik zerbait hartzera joan eta **armonian** hasten zen, mehatxuka eta erasotzeko prest. Gotzon Garate

Behia hala ikusi bezain pronto, amona Genobeba erdilasterka han etorri zen hankutsik, soroa behera, **armonian**. Patziku Perurena

---

armonika ik **harmonika**.

---

armoniko ik **harmoniko**.

---

armonizatu ik **harmonizatu**.

---

armonizazio ik **harmonizazio**.

---

armorikar *izlag/iz* Armorikakoa, Armorikari dagokiona; Armorikako biztanlea.

Alabaina, barbaroek inbaditu gabeko Galiako erromatarrak bi motatakoak ziren Dubos abadearen arabera: batzuk konfederazio **armorikarrekoak** ziren, eta enperadorearen ofizialak kanporatu zituzten barbaroen kontra berak bakarrik defendatzeko eta beren legeen arabera gobernatzeko; besteek ofizial erromatarrei obeditzen zieten. Iñaki Iñurrieta

Nationeko norabidea hartu nuen eta garraio publikoaren sabelean umetu nintzen, malkoak zerizkidala begietan behera, **armorikar** euri egun batean antzera. Itxaro Borda

---

armosu *iz* gosaria.

Eta ez kexa: hemen egunero egiten ditiagu hiru otorduak, behar bezala, eta **armosua** barne. Txillardegi

---

ARN **1** *iz* (sigla) azido erribonukleikoa.

Izan ere, molekula horietatik erribosa sor daiteke, azido erribonukleikoaren (**ARN**) eta azido desoxirribonukleikoaren (ADN) oinarria Berria - Gaiak

Proteina fabrikatzeko makinak, xehetasun eta guzti, ez du jada sekreturik guretzat, bere bi urratsekin: genea **ARN** mezulari gisa transkribatzea, mezularia peptido-kate gisa itzultzea. Juan Garzia

2 ***ARN birus*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Koronabirusek bilkin birala, zentzu positibodun hari bakarreko ARN genoma eta simetria helikoidaleko kapsida dute. Haien tamaina genomikoa 26 eta 32 kilobase artekoa da, **ARN birusen** artean luzeena. ETC-entziklopedia

3 ***ARN mezulari***

Proteina fabrikatzeko makinak, xehetasun eta guzti, ez du jada sekreturik guretzat, bere bi urratsekin: genea **ARN mezulari** gisa transkribatzea, mezularia peptido-kate gisa itzultzea. Juan Garzia

4 ***ARN polimerasa*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Lehenengo fasea transkripzioa da. Bertan **ARN polimerasa** entzimak DNAaren kopia den RNA mezularia molekula sortzen du. ETC-entziklopedia

RNA polimerasa edo **ARN polimerasa** DNAtik abiatuta RNA molekulen sintesia katalizatzen duen entzima da. ETC-entziklopedia

---

arnas ik **arnas**a.

---

arnasa **1** *(orobat **arnas**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **arnasa** agertzen da) iz* biriken jardunaren ondorioz, ahotik edo sudurretik ateratzen edo sartzen den airea. ik **hats**.

Goialdean burdina goriaren antzeko eguzkiak etxeak etengabe galdarazten ditu eta etxeetatik ibairaino, harrizko mailadietan behera, haize kiskal-garriak uhinetan bezala galarazten digu **arnasa**. Gotzon Garate

Musika hori, jotako momentuan, jan egiten zuten entzuleek, barruraino irentsi, eta haien gorputzean, **arnasak** birikak betetzen dituen bezala musikak elikatzen zuen haien bizipoza. Pako Aristi

Egon gaitezke ziur Murad Bey, kontrako indar mamelukoen agintariak, sekula ez zuela bere **arnasarik** gastatu halako mezurik zuzentzen jakin-minik ez zuten bere arma-lagunei. Iñaki Mendiguren

Puntuazio egokia zein den jakiteko komeni da, behin testua idatzi ondoren, hura **arnasa** kontrolatuz irakurtzea. Askoren artean

Zen saioa beti bezalakoa izan zen: **arnasarena** gero eta hobeto kontrolatzen ikasten ari bazen ere, azkenean pareta zuriaren aurrean lokartu egiten zen Arantxa, maisuaren txaloak denbora berrezarri eta esnatzen zuen arte. Iban Zaldua

Pausotxo penagarri bat eman nuen aurrera, eta **arnasari** eutsi nion. Matías Múgica

Bere **arnasa** sakonagatik ez bazen, hiltzat joko zuen Olivier. Harkaitz Cano

260 Bigarrena da erritmozko otoitzean gehiago egon nahi duenak esan ditzakeela lehen aipaturiko otoitz guztiak edo haietako batzuk, **arnasazko** erritmoko ordena bera edukirik, esan den bezala. Patxi Altuna

Gero oso borbor ozena entzun zen, **arnasa** ez zena. Joseba Urteaga

Arnasa laburtu zitzaidan, berriz, begiak gure kaskamotxetan tinkatu zituelarik. Aingeru Epaltza

Belaunen eta eskuen gainera erori zen akiturik, baina, **arnasa** bere onera ekarri zuenean, itsas jainkosak emaniko zapia askatu eta ibaira bota zuen; uhin handi batek hartu zuen, eta Inoren eskuetaraino eraman. Juan Kruz Igerabide

Arnasa ahitzerainoko eztabaidan jardun arren haren jatorriaz, aho batez aitortzen dute etnologoek unibertsala dela intzestuaren debekua. Juan Garzia

3 *iz* haizeaz mintzatuz, bolada biguna edo gozoa.

Hegoaldeko haizeak ematen zion **arnasa**, arbolak erotzen hasiak; ni beldur nintzen (esperantza nuen) aterperik gabeko toki batean harrapatuko ote gintuen euriak. Juan Garzia

3 irud/hed

Emakumea da gizonon musa, geriza, talaia, **arnasa**, argia, jomuga eta galmendia; emakumea da biziaren sortzailea, fruitu arbola, lorea eta haizea, begiez ikus dezakeguna oro. Karlos Linazasoro

Iruñeko erdigunea ipar haize zitalak, freskoak, astintzen zuen egunean euskal txirrindularitza profesionalari **arnasa**, haize freskoa eman nahi dion ekimena aurkeztu zuen Kaiku esneki enpresak. Berria - Kirola

Euskararen ametsa, orain **arnasarik** ez duen herrietan bizirik. Iñigo Aranbarri

Irudimenaren **arnasa**, irudi berrien sortzailea maitari izatea da. Jenaro Garate

Han sartzen ditu Jainkoaren **arnasa** orain eta betierean hartzeko gai diren guztiak. Joan Mari Lekuona

Aukera ematen du, gainera, gaur bertako artegintzaren **arnasa** belarri ondoan sentitzeko. Hasier Etxeberria

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oro har, **arnas** erritmoa nabarmen jaisten da eta arnasaldien maiztasuna gutxitu. Lourdes Oñederra

Diskurtso politikoek eskola-patioko umeen kasketa eta xextren antz handiegia hartu duten garaiotan, **arnas** burbuilak dira Bixente Serrano Izkoren *Bakezale gerlari horiek* eta antzeko liburuak. Berria - Kultura

Bere katu nazkagarriarekin lotzen bide zuen ahalmen misteriotsuak leku hartara erakarrita, bat-batean han agertu zen Argus Filch Harryren eskuinaldeko tapizean zehar, **arnas** hotsarekin eta eroa bezala arau-hauslearen bila. Iñaki Mendiguren

Veronica mamu bat zen, ilunpeko **arnas** erritmo soil, hirugarren hats, izara huts, haize rafaga batek une batez puzten duen balkoietako izara lehortzen jarria. Harkaitz Cano

Arnas hotsa besterik ez zen nabari telefono haritik. Fernando Morillo

Ez zatekeen arrazoi aski argigarria izango hezkuntza eta gogoeta bereziki mistiko baten jaiotza eta garapenerako, mistiko-espekulatiboarena areago, baldin eta Mistika ordurako aura eta **arnas** giro bat izan ez balitz. Joan Mari Lekuona

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Isiltasuna gelan, zakurraren hatsa ere aditzen zen, asmatiko-**arnasa**. Fernando Rey

Arnasa uzkurduren arteko uneetan soilik har nezakeen ozta-ozta, eta haiek ez ziren amaitzen. Joseba Urteaga

Ondo jantzitako bi gizonezko ziren, sendokoteak eta buru-iritziak, eta oparotasun-**arnasa** bat ekarri zuten lagunarte hartara. Irene Aldasoro

Haren lo-**arnasa** lasaia Egutxirena baino zertxobait mantsoagoa zen. Ibon Uribarri

Zaldi-**arnasa** iruditu zitzaion albo batean, eta harantz hartu zuen. Anjel Lertxundi

6 ***arnas aparatu*** *iz* arnasketan parte hartzen duten organoen multzoa.

Arnas aparatuko gaitzen kontra egin nahi du OMEk . Berria - Gaiak

Kontuan hartu behar dugu lo gaudenean gure **arnas aparatuak** gutxiago aireztatzen duela, eta bakterioak bertan ugaltzeko aukerak handiagoak direla. Berria - Harian

7 ***arnas hartze*** *iz* biriketara airea helaraztea; hasgorapena. ik **arnasgora**.

Apneak **arnas hartze** behartu bati jarraikion arnasketaren etenaldi iragankorra dituztenek ezin dute lo sakon egin. Berria - Gaiak

Baina txikiagoa nahiago eta beste bat bilatu zuen; hau esku bakar batez atxiki zezakeen, eta arrainaren saihetsek eskua zabaltzen zioten pixka bat, **arnas hartze** bakoitzean. Karlos Zabala

8 ***arnasa batean*** *adlag* arnasaldi batean; denbora tarte oso laburrean.

Tabernako neskak eskutik eskura eman zion dena arrain saltzaile ederrari, tabernariaren madrigal bat **arnasa batean** errezitatzen ziola. Karlos Zabala

9 *arnasa berotu* arnasa estutu.

Hirsch andrea -gorteko eta auzitegiko abokatuaren emaztea-, **arnasa berotuta** sartu zen senarraren Essling kaleko bulegora. Anton Garikano

10 *arnasa berritu* arnasa hartu.

Arnasa berritzera geratu beharra izan zuen. Koro Navarro

Gortariri ere ondo etorriko zitzaion bidaia, lasaitzeko, **arnasa berritzeko**. Patxi Iturritegi

Gehienak presaka pasatzen ziren nire aurretik; bakan batzuk, berriz, markesinaren azpian babesten ziren ni bezala, baina **arnasa berritzeko** bakarrik. Anjel Lertxundi

11 *arnasa bete* arnasa hartu.

Arnasa bete ezinik gelditu zen tsarraren mandataria. Karlos Zabala

12 *arnasa betean* arnasestuka.

-Zure plana oso ona da, baina gaueko eginbeharrak utzi nire kontu, bizpahiru lagun baditut-eta, teatro hori ezin hobeto egin dezaketenak: 'azpil-nahaspil' bikaina, bai horixe! -eta, **arnasa betean** hartzen zuela, segitu zuen-. Joan Mari Irigoien

Lurrean etzanda eta **arnasa betean** oihuka egon zen zaindariak bertaratu ziren arte. Jose Morales

Bereak balitu, noiznahi ikusiko genuke anuntzioa, kartel handietan: Bodegas Anastasio! -eta, **arnasa betean** hartzen zuela, bere ondorio enpresarialak atera zituen-: Eskerrak Insalus-koak ez direla sermoian azaldu, bestela...! Joan Mari Irigoien

13 *arnasa bota* arnasa kanporatu, hatsa bota.

Harengana hurbildu, uniformetik bularraren parean heldu nioan, eta lurretik altxatu nian; aurpegian elkarri **arnasa botaz**, bekoz beko begiratu genioan elkarri. Xabier Olarra

Snapek guztiak urduri jartzen zituen, kokotera **arnasa botatzen** baitzien Edabe Ahazgarri bat nola egin gogoratu nahian ari ziren bitartean. Iñaki Mendiguren

Idi bat hurbildu da, gelditu, **arnasa bota** eta ziztu bizian alde egin du; haren apatxen hotsa zeruraino zabaldu eta desagertu da. Itziar Otegi

14 *arnasa egin* *(orobat **arnas egin**)* arnasa hartu edo bota.

Behera jaitsita ikusi zituen neskak lo, utzitako leku berean, baina orain elkarri bizkar emanda, bakoitza tapa-tapa eginda mantetan, burkorantz **arnasa egiten**. Anton Garikano

Andaluziako autore batek Sareptako emakumearen semeari buruz esan zuen hark **arnasa egiteari** utzi ziola, harengan hatsik ez nabarmendu arte, batzuetan apoplexia edo itomen histerikoen kasuan gertatzen den bezala. Xabier Kintana

Galdetu beharra dago: arima deritzon izate hura, lehen ez zena, ezerezetik sortu al zuen, bere hatsa bailitzan, azpiko substantziaren batetik ez baina erabateko hutsetik egina, Jaungoikoak **arnasa egin** nahi izan zuenean? Imanol Unzurrunzaga

-Alex -esan zidan, eta nire biriketatik **arnasa egiten** hasi zen, hamargarren solairuko sutetik salbatu dutenaren indarrarekin. Lander Garro

15 *arnasa eman* adorea eman, indarra eman.

Arnasa eman zion taldeari bere gelduekin, eta Rocasek eta Garraldak biribildu zuten lana. Berria - Kirola

Arnasa emango dio izenez eta adjetiboz zamatuxea zegoen bertsoari. Andoni Egaña

Dendak sekulako **arnasa eman** zion etxeari. Alberto Barandiaren

Hainbat aldiz jo dut zuregana, hilzorian eta itotzear, eta zuk, gogo zabalez, **arnasa eman**, eta salbatu egin nauzu beti! Jose Morales

16 *arnasa estutu* arnasa larritu, arnasa hartu ezinik egon.

Baina, behean, sotoko haize beltzak **arnasa estutu** zion urdai saltzaile ederrari. Karlos Zabala

Gero eta azkarrago ibiltzen zara eta erabat ergel sentitu zara **arnasa estutzen** ari zaizula konturatzean. Lourdes Oñederra

Eta denak aritzen dira **arnasa estuturik** harriak garraiatzen. Josu Zabaleta

17 *arnasa galdu*[1] arnasarik gabe gelditu.

Greba, ordea, **arnasa galtzen** joan zen luzatu ahala, enpresako zuzendaritzak ez zuela amore ematen ikusita. Jon Maia

Haurra negar-zotin urrikalgarriak egiten hasi zen; lau edo bost segundo **arnasa galdurik** egon eta berriro hasten zen. Irene Aldasoro

Baina berak ere **arnasa galdu** du, balantza egin, ahituta, eta lurrera jausi da, etzanda, musua muturraren kontra, bi begiak begi bakarrean katigatuta. Itziar Otegi

Apirilean, hain zuzen, soldadu estatubatuarrek torturatutako preso irakiar bat hil zela zehazten zuen The New York Times-ek, «bularrean jasotako kope baten eta **arnasa galtzea** eragin zion posturen ondorioz». Berria - Mundua

18 *arnasa galdu*[2] “hil”en leungarri gisa.

Arnasa galtzen ari bainaiz. Zuk ezagutzen duzu nire ibilbidea, Jauna; badakizu, nabilen bidean tranpa jarri didatela. Elizen arteko biblia

Arnasa galtzen legez doa gure makina eta aldarri batean gure lagun berlindarrak. Edorta Jimenez

19 *arnasa hartu*[1]

Ahoa lehor-lehorra zeukan eta **arnasa hartzea** bere burua labana izoztu batekin erdibitzea bezalakoa zen. Fernando Morillo

Albenizkoak muturreko handi samarra hartu zuen Giroan (Araba), eta bizitza normala egiteko ondo osatu bada ere, **arnasa hartzeko** gaitasuna murriztu izanak goi mailako kirol jarduna uztera behartu du arabarra. Berria - Kirola

Kontuak kontu, errazago eusten diegu, **arnasa hartzen** baina airea guk neurtuta. Urtzi Urrutikoeetxea

Izerdia xukatu zuen eskuin eskuaz; **arnasa hartu** zuen sakon. Felipe Juaristi

Ukuiluan mugitzen eta **arnasa hartzen** zuten abereen hotsak, eta baratzeko txoriren baten txioak entzuten ziren. Josu Zabaleta

20 *arnasa hartu*[2] atseden hartu; lasaitasuna eskuratu.

Anoetan izango du **arnasa hartzeko** lehen aukera. Berria - Kirola

Desafio berri baten aurrean gauden sentsazioa izaten dugu asteburu bakoitzean, eta **arnasa hartzen** dugu etxera itzultzean, froga gainditua... datorren astera arte eginez geure baitan. Jokin Urain

Arnasa hartzeagatik, lasaitzeagatik, hutsunea egiteagatik... Bat-batean, ikasmahaiko graffitiak ikusi nituen neure sudur puntan bertan. Jesus Mari Mendizabal

21 *azken arnasa* *iz* hil aurreko unea. ik **agonia**; **hilzori**.

Bazekien orain halabeharra eta arrisku guztiak puntu batean biltzen zirela: biharamuna giltzarria izango zen, azken ahaleginaren ala hondamendiaren eguna, **azken arnasarena**. Agustin Otsoa

Ene maiteok, ilunabar horretan, neure gorputz honi su emanen diot, ea behingoz argi pixka bat ematen duen, eta gero, hego-haizearen eskuak barreia eta sakabana ditzala nire errautsak eta maitasun-keak Azpilgo zoko-moko guztietan, ene herriaren **azken arnasarekin** nahas daitezen. Joan Mari Irigoien

Orduan hizkuntza, bere **azken arnasetaraino** kuxkurturik, sinbolo huts bihurtua geneukake: bandera baten edo egunkari baten pare bihurtua; hots, oihala, papera: merchandising nazional hutsa. Iñaki Segurola

22 *azken arnasa eman* hil.

Egun batzuk hil edo biziko lehia gogorrean aritu eta Herioren aurpegi herbala azazkal luzeez zauritu ondoren, berak ere **azken arnasa eman** zuen azkenik. Felipe Juaristi

Azken arnasa eman zuenean, Adeodato haurrak negarrari ekin zion marruka eta guk aginduta isildu zen. Imanol Unzurrunzaga

-Libyako nomadek, heleniarren arabera lurperatzen dituzte hildakoak, nasamonek izan ezik; hauek eserita lurperatzen dituzte, **azken arnasa ematean** eserrarazi eta ahoz gora hil ez daitezen zainduz. Patziku Perurena

Eta **azken arnasa eman** zuen. Juan Garzia

23 *azken arnasan egon* hilzorian egon.

azken arnasan nago! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

24 ***azken arnasetan egon*** hilzorian egon.

Eguna joan eguna etorri, barrena janik **azken arnasetan nago** ni. Jon Muñoz

Berak ere badaki **azken arnasetan dagoela**. Xabier Etxabe

25 ***bizi-arnasa***

Lehorrean **bizi-arnasa** zuen oro hil zen. Elizen arteko biblia

Hemen **bizi-arnasa** haginkatu egin daiteke, haragizkoa baita airea. Edorta Jimenez

Halako neskato batek **bizi-arnasa** ematen zion hirurogeita zazpi urteko agureari. Ibon Uribarri

26 ***goi arnasa*** *(orobat **goi arnas** eta **goiarnasa**) iz* inspirazioa. ik **goiargi**.

Yave eta Adan besoak luzatuta agertzen ziren posterrean, munduaren sorreran, Jainkoak gizonari biziaren txinparta edo **goi arnasa** edo dena delakoa ematen zion unea irudikatuz. Xabier Mendiguren Elizegi

Goi arnas handiagoa emana zion Galiziako pattar hark. Iñigo Aranbarri

Ezkontzak inoizkorik askeenean direnean; berdintasun politikoak baldintzen desberdintasun muturrekoena desagerrarazi duenean, hau da, ezkontideek izadiaren **goi arnas** gozoei men egin eta harrokeriazko aurreiritzien aurka borrokatu behar ez duten une horretan bertan. Andres Urrutia

Goiarnasak basoan zabiltzala jo bazaitu, Bitoriano Gandiagarena egin dezakezu: adar mardul bat hartu, eta lurrean idatzi, ahal duzun bezain laster hara itzuliko zaren esperantzan, paper eta guzti. Joxerra Garzia

Felixek azaldu zuen, noizbait, bien arteko lotura "mentala" zela: gogo, asmo eta helburu komunek lotutako espirituak zituztela, pentsamolde eta **goi-arnasa** berberak. J.M. Olaizola "Txiliku"

27 ***arnas alkalosi*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Arnas alkalosi akutu desorekatua (adib.: buxadura akutua, opiazeoengatiko intoxikazioa); **Arnas alkalosi** kroniko orekatua (ohiz kanpokoa: estatus asmatiko luzea ote?); **Arnas alkalosi** akutu desorekatua (adib.: buxadura akutua, opiazeoengatiko intoxikazioa); **Arnas alkalosi** kroniko orekatua (ohiz kanpokoa: estatus asmatiko luzea ote?) ETC-zientzia, zuzenbidea

28 ***arnas bidezko alkalosi*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Gizaki batek presioaren jaitsieraren bat jasaten badu altuera handietara igo izanagatik, hainbat mekanismo fisiologiko garatzen ditu kondizio atmosferikoak konpentsatzeko: **arnas bidezko alkalosia**, biriken zabalketa, bihotzaren taupadak azkartzea, etab. ETC-entziklopedia

29 ***arnas birus sintzitial*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Talde honetan giza-patogeno batzuk daude, besteak beste elgorriaren birusa, hazizurriarena eta **arnas birus sintzitiala** (arnas traktuko infekzioak garatzen dituena). ETC-entziklopedia

Jakinarazi dute gripearen birusarekin batera helduengan pneumonia kasuek gora egin dutela, eta umeen artean, **arnas birus sintzitialak**? umeengan ohiko gaixotasuna da? ETC-prentsa

30 ***arnas botatze***

Etapa erregina, karnet tamainako argazkia, kakatzen zara, kreditu txartelaren **arnas botatze** eguna, eraikin bateko lehenengo landarera igo, odol erauzketa, zuringoa daramazu, zuen disposaketan geratzen gara, Bloody Mary azpikogona.... Iñaki Arranz

31 ***arnas fisioterapia*** *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

Arnas fisioterapia arnasaren arazoen prebentzioa, tratamendua eta egonkortzera zuzendutako fisioterapiaren atala da. ETC-entziklopedia

Arnas fisioterapia jarraitzen ari da, baina horrek ez digu ziurtasunik ematen". ETC-prentsa

Bere kontrako tratamenduan **arnas fisioterapia**, antibiotikoak eta ariketa fisikoa konbinatzen dira, birikak gorputzean sortzen den muki likatsu horretatik ahalik eta garbien mantentzeko. ETC-prentsa

Arnas fisioterapia, adibidez, botikak bezain garrantzitsua dela adierazi du, baina hainbatetan egiteko hori zaila dela nabarmendu du. ETC-prentsa

Elkartearen hainbat material zituzten salgai: "Dirua gure umeek egunerokoan behar duten **arnas fisioterapiako** tratamenduetarako baliatzen dugu". ETC-prentsa

Eguneroko **arnas fisioterapiako** zerbitzu publiko baten alde borrokatzen ari da Arnasa elkartea. ETC-prentsa

Tratamenduan gure zutabeak antibiotikoak, nutrizioa eta **arnas fisioterapia** dira. ETC-prentsa

32 ***arnas gaixotasun*** *(corpusean ez dago; ETCn **88** agerraldi)*

Arnas gaixotasuna arnas aparatuari kalte egiten dion eritasuna da. ETC-entziklopedia

Bestetik, garaion erruz jazotzen diren **arnas-gaixotasunen** eta infekzioen eraginez, odol emaile asko eta asko donazioa atzeratu beharrean egoten dira. ETC-prentsa

Mundu osoan, Danimarkan dute emakumeen minbizi tasarik handiena, eta Japoniak du kutsadura tasarik handiena; horrek, jakina, eragina du **arnas gaixotasunetan** eta tumoreetan. ETC-prentsa

Baina ez da ahaztu behar hirietako airean presente dauden kutsatzaile horiek larriagotu egiten dituztela bai **arnas gaixotasunak** -asma, bronkitisa, alergiak... -, eta baita gaitz kardiobaskularrak ere. ETC-prentsa

Save the Children erakundeak jakinarazi du 400.000 ume kaltetuta daudela, eta horien artean askok beherakoa eta **arnas gaixotasunak** dituztela. ETC-prentsa

Horrela, jarraian, **arnas gaixotasunak** agertzen dira (% 9), neoplasiak edo tumore gaiztoak (% 8,9) eta haurdunaldiaren, erditzearen eta erdiberriaroaren konplikazioak (% 8,8). ETC-prentsa

Eta lanbro honek eguzki izpien bidea oztopatu ez ezik, euri azidoa eta **arnas gaixotasunak** sortzen ditu. ETC-prentsa

Asma da **arnas gaixotasun** ohikoenetarik bat. ETC-prentsa

Debagoieneko ospitalean, A gripea izan duen pertsona bakarra egon da ospitaleratuta orain arte; **arnas gaixotasun** kronikoa duen pertsona gaztea. ETC-prentsa

Alde batetik, adina kontuan hartu barik **arnas gaixotasun** kronikoak dituzten pertsonak daude; beste alde batetik, haurdun dauden emakumeak; eta, azkenik, 2 urtetik beherako umeak. ETC-prentsa

Fibrosi kistikoa ondoretasunez jasotako ohiko **arnas gaixotasuna** da. ETC-zientzia, zuzenbidea

65 urtetik gorakoen artean, **arnas gaixotasun** ohikoenak dira tuberkulosia, bronkioetako pneumonia eta biriketako infekzioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oso garrantzitsua da pazienteak dituen gaixotasunen berri izatea, farmakoen erantzuna aldez aurretik jakin ahal izateko: diabetesa, bihotz-gaixotasunak, **arnas gaixotasunak**, giltzurrun- edo gibel-gutxiegitasuna, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

33 ***arnas gutxiagotasun*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Hipoxia beraz, **arnas gutxiagotasunaren** ondorio bat dela kontuan hartuz, esan behar da oxigenoaren urritasunarekin guztiz erlazionaturik dagoela. ETC-entziklopedia

34 ***arnas gutxiegitasun*** *(corpusean ez dago; ETCn **51** agerraldi)*

Arnas gutxiegitasuna oxigeno maila baxuegia agertzen den egoera klinikoa da, irizpide proba analitiko analitikoek definitzen dutena. ETC-entziklopedia

Agian, beste zerbaitegatik hil ziren: **arnas gutxiegitasuna**, itoak beren goitikoekin... ETC-literatura, saiakera

Eta horiek etengabeko **arnas gutxiegitasuna** eragiten diote umeari. ETC-prentsa

Arnasketa mekanikoaren makinara lotu zuten, baina okerrera egin zuen pneumoniak, eta "**arnas gutxiegitasunaren**" ondorioz hil zela azaldu du Maravik. ETC-prentsa

Dena den, gripe bat harrapatzen duen adineko pertsona batek gaixotasuna konplikatzeko arrisku handi samarra dauka, eta konplikazio horrek **arnas gutxiegitasun** larria eragin diezaioke. ETC-prentsa

Asteartean larri-larri zegoen Chavez; asteazkenean, larri; ostegunean, hobeto, laster etxera bueltatzeko moduan; atzo, aldiz, **arnas gutxiegitasuna** zuen agintariak. ETC-prentsa

Biriketako bideari dagokionez, **arnas gutxiegitasuna** da, zalantzarik gabe, aerosolen bidezko terapiaren aurrean ondoen erantzuten duen gaixotasuna. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azkenean, diafragma-giharraren eta saihetsarteko giharren endekapenak **arnas gutxiegitasuna** eragiten du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kasu larrienetan bronkoespasmoak eta **arnas gutxiegitasuna** gerta daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Porfiria edo **arnas gutxiegitasun** larria duten gaixoetan kontraindikatuta dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

35 *arnas hodi* *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)*

Arnas hodia hodi formako gailu bat da, norbaiti arnasa hartzeko airea emateko balio duena, batez ere urpekaritzan erabiltzen diren arnasketa-hodiei dagokienez. ETC-entziklopedia

Gorputzeko ehun konjuntiboak dira kartilagoak, soinaren atal batzuen giltzaduretan -belarria, sudurra, **arnas hodiak** ...- ezinbestekoak. ETC-prentsa

Terapia intentsiboan zegoen eta koma egoeran sartu da, baina bihotz eta **arnas hodietako** bizkortzea egin diogu eta suspertu da. ETC-prentsa

Arnasik hartu gabe egiten denean, maskara egokia, hegalak, **arnas hodiak** (snorkel-ak), lasta eta jantzi termo-isolatzaileak erabiltzen dira normalean. ETC-prentsa

Bizilagunak kexu dira, buruko mina, goragalea eta **arnas hodiak** urratuta dauzkatelako. ETC-prentsa

Haien buruak periskopioak, **arnas-hodiak** eta matxardak baino ez ziren. ETC-literatura, saiakera

Kanpoarekin kontaktu zuzena duten gorputzeko ataletan aurkitu ohi da mikroorganismo gehien (larruazalean, ahoan, **arnas hodian**, digestio-hodian eta aparatu genitourinarioan). ETC-zientzia, zuzenbidea

Erdian, **arnas hodi** baten zeharkako ebakidura ikusten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

36 *arnas kate* *(corpusean ez dago; ETCn **58** agerraldi)*

Erriketsiek **arnas-kate** osoa dute, zitokromo eta guzti, eta gai dira elektroi-garraioaren bidezko fosforilazioa egiteko, NADH elektroi-emaile dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adibidez, zitokromoetan, hots, **arnas katean** agertzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gure metabolismoak glukosa oxidatzen duenean (glukolisia, Krebs zikloa eta **arnas katearen** bidez) energia kimiko ugari (ATP) sortzen da. ETC-entziklopedia

Zelula eukariotoetan arnasketa zelularra zitoplasma eta mitokondrioetan burutzen da, hiru etapetan: glukolisia, Krebs zikloa eta **arnas katea** eta fosforilazio oxidatiboa. ETC-entziklopedia

Ezagunenak kinonak dira, plastokinona eta ubikinona, **arnas katean** parte hartzen dute elektroiak garraiatuz. ETC-entziklopedia

Politerpenoak (lau terpenotik gorakoak): Ezagunenak kinonak dira, plastokinona eta ubikinona, **arnas katean** parte hartzen dute elektroiak garraiatuz. ETC-entziklopedia

37 *arnas sindrome akutu larri* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Arnas sindrome akutu larria (ASAL euskaraz, "SARS" ingelesez) koronabirus batek sortutako arnas-aparatuko gaixotasun larria da, 2002an Txinan agertu zena. ETC-entziklopedia

ASAL (**Arnas Sindrome Akutu Larria**) delako asiar pneumoniak bazterrak asaldatu ditu mundu guztian barrena. ETC-literatura, saiakera

38 *arnas sistema* *(corpusean ez dago; ETCn **80** agerraldi)*

Ahots-organoak bazituen, antza, **arnas sistema** nagusiari lotuak; baina artean argitu ezineko anomaliak agertzen zituen. ETC-literatura, saiakera

Arnas sistema eta zirkulazio sistemak dira gizakiaren organismoaren oinarriak. ETC-prentsa

Mineral horren zuntzekin luzaro harremana izanez gero, atzeraezineko ondorioak uzten ditu **arnas sisteman**. ETC-prentsa

Analeptiko gisa eta zirkulazio eta **arnas sistemen** estimulatzaile gisa erabil zitekeela uste zuen. ETC-prentsa

Produktu kimiko hauek lotura zuzena dute zenbait gaixotasunekin: **arnas sistema** eta azalaren narritadura, legionella, antzutasuna, eta dirudienez minbizi mota ezberdinekin. ETC-prentsa

Ingurune horretan, desnutrizioak, malariak, **arnas-sistemako** infekzioek eta beherakoek heriotzen %45 eragiten dituzte", dio txostenak. ETC-prentsa

Aditu batzuek diote fosforo munizioak arma kimikotzat jo behar direla, sortzen dituzten erredura motengatik eta **arnas sistemari** erasateagatik. ETC-prentsa

Infekzioa dutenen hamarretatik bakarrak soilik garatzen baitu gaixotasuna, infekzioak **arnas sisteman** eragiten duenetan bakarrik. ETC-prentsa

Azterketaren emaitzen arabera, cannabis-ak **arnas-sistemako** goiko hodiak eta biriketako hodi txikiak hondatzen ditu. ETC-prentsa

Mukosan depositatutako partikula handiak **arnas sistematik** kanpora, eztarrira, garraiatzen dira, non txuarekin batera irentsiak diren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arnas sistemak mugitzen duen airearen bibrazioa eta aho, sudur eta eztarriko elementuek egiten diote aireari traba edo erresonantzia. ETC-entziklopedia

Gaixotasun honen diagnostikorako nerbio sistema, **arnas sistema**, bihotz eta muskuluen azterketa sakona egiten da. ETC-entziklopedia

39 *arnasa bete ezinik*

Arnasa bete ezinik gelditu zen tsarraren mandataria. Karlos Zabala

40 *arnasa itzularazi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Faltak **arnasa itzularazi** zion Olaizolari, eta huts trukatze urduri baten ondoren, Goizuetakoak, ezkerrez lau t'erditik jota, tanto bikaina egin zuen aurreko eskuineko puntan. ETC-prentsa

41 *arnasa itzuli* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Oso zehatza zen helburua: zapaldurik eta zigorturik zegoen euskarari bizinahiaren **arnasa itzultzea**. ETC-literatura, saiakera

Lehenengo hitza, maman, denetarako hitza, ikararen hitza, **arnasa itzuliko** zidan hitza, eta babesean egongo nintzen. ETC-literatura, saiakera

Mattia atzetik jarraitu zitzaion egongelatik barrena eta gero kanpoan, gaueko aire freskoa zain zutela, haiei **arnasa itzultzeko**. ETC-literatura, saiakera

Eskailera-mailan eseri zen, eskudelari oratuz, harik eta **arnasa itzuli**, titarekada bat aldiro, eta eskailerek sigi-saga ibiltzeari utzi zioten arte. ETC-literatura, saiakera

Arnasa itzuli zitzaionean, kordeletik tira egin zuen eta etxe barruan jostailuzkoa zirudien txirrina jo. ETC-literatura, saiakera

Barkamena eskatu dio ondoko surflariari, **arnasa itzuli** baino lehenago. ETC-literatura, saiakera

Arnasa itzuli arte itxaron, eta zera esan du, burlazko ingeles azentu bat erabiliz: ETC-literatura, saiakera

Presiopean azkenean, arkume brotxetak seinalatu dizkiot, eta ez dakit zergatik baina erabakitze hutsak **arnasa itzuli** dit istant batez, nahiz eta gosea pasa zaidan. ETC-literatura, saiakera

Eta baita irakasle ona ere: gehiegizko poza mugatu, euroari **arnasa itzuli** eta Brent upela abendu hasierako prezioetara joatea nahikoa izan zuen, Ibex-35 9.000 puntuz azpitik kokatzeko. ETC-prentsa

Epaiak ez baitie eurei **arnasa itzuliko**. ETC-prentsa

42 *arnasa izan*

Arnasa izango dudan bitartean, Jainkoaren hatsa nire sudurretan,. Elizen arteko biblia

43 *arnasa laburtu*

Arnasa **laburtu** zitzaion Norari, eta izerdi hotza sentitu zuen garondoan. Anjel Lertxundi

44 *arnasaz bete*

Zurbil-zurbil segitzen zuen Norak, ahoa hauspo eta birikak **arnasaz bete** ezinik, eta aitak aurrerapenaren alde esaten zituen arrazoi berak Willemen ahotan ere entzuteak areagotu egin zion oinazea. Anjel Lertxundi

Gure ostalaria bere bizitzako nahigabeak husten ari zaigu, baina nagoen lekuan pozik nago, ezin sinesteko moduan, eroso neure gorputzaren baitan, mahai gainean dauden gauzei begira, nire birikak **arnasaz bete** eta hustuz, bizirik nagoelako egitate soila gozatuz. Oskar Arana

Egizue otoitz, Kiribilaren izpirituak gure buruzagi bedeinkatua zorionaren goi **arnasaz bete** dezan. Joxan Elosegi

45 *azken arnasetan*

"Hasieran esan dudana errepikatuz amaitu behar dut", dio Agirrek bere hitzaldi luzearen **azken arnasetan**. Edorta Jimenez

Ume-umetako erreflexuak izaten dira, gaitzaren **azken arnasetan** ere ohikoak. Berria - Gaiak

Gero berriz, Historiaren **azken arnasetan**, suge-larru onaz zeharo atzendu eta Latex izeneko jainkoaizunaren lagun egin du merkatuak emakumea. Iñaki Segurola

Eguna joan eguna etorri, barrena janik **azken arnasetan** nago ni. Jon Muñoz

Berak ere badaki **azken arnasetan** dagoela. Xabier Etxabe

46 *jaioberriaren arnas distresaren sindrome* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Jaioberriaren arnas distresaren sindromea edo mintz hialinoen gaixotasuna, ume goiztiarretan surfaktante ekoizpen gutxiegitasuna eta birika biriken heldutasunik eza dela eta sorturiko sindromea da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

arnasa bat (7); **arnasa bere** (10); **arnasa berreskuratu** (8); **arnasa eman** (51); **arnasa eman zion** (8); **arnasa eman zuen** (9); **arnasa emateko** (8); **arnasa ematen** (20); **arnasa entzun** (7); **arnasa estutu** (8); **arnasa eten** (12); **arnasa gabe** (7); **arnasa har** (10); **arnasa hartu** (226); **arnasa hartu ahal** (9); **arnasa hartu behar** (8); **arnasa hartu du** (15); **arnasa hartu eta** (33); **arnasa hartu ezinik** (13); **arnasa hartu nuen** (15); **arnasa hartu zuen** (55); **arnasa hartuz** (13); **arnasa hartzea** (31); **arnasa hartzean** (12); **arnasa hartzeko** (177); **arnasa hartzeko arazo** (14); **arnasa hartzeko arazoak** (19); **arnasa hartzeko ere** (7); **arnasa hartzeko zailtasunak** (9); **arnasa hartzen** (113); **arnasa hartzen du** (12); **arnasa hartzera** (12); **arnasa lasai** (9); **arnasa nekez** (7); **arnasa pixka bat** (11); **arnasa sakon** (85); **arnasa sakon hartu** (50); **arnasa sakon hartuz** (7); **azken arnasa** (45); **azken arnasa eman** (17); **bizi arnasa** (34); **goi arnasa** (8); **haren arnasa** (13); **hartu arnasa** (8); **hartu du arnasa** (8); **hartu nuen arnasa** (7); **hartu zuen arnasa** (28); **hartzen zuen arnasa** (32); **nire arnasa** (7); **nuen arnasa** (16); **sakon arnasa** (10)

arnas aparatuko (17); **arnas estua** (7); **arnas estuka** (9); **arnas pixka** (10); **arnas pixka bat** (10)

---

arnasadun **1** *izond/iz* arnasa hartzen eta botatzen duena.

Gorets beza Jauna **arnasadun** orok! Askoren artean

Gorets beza Jauna **arnasadun** orok! Aleluia! Gora Jauna! Askoren artean

2 irud/hed

Ortziaren eta itsasoaren arteko harkaitz handi hartan txikiagotu ordez, eraikin **arnasadun** baten neurrikoa sentitu nuen neure burua, eta Ray zen mundu osoan nire orro ederra berdin zezakeen pertsona bakarra, esan nuenean: [...]. Koro Navarro

---

arnasaldi **1** *iz* arnasa hartzen den aldia.

Izan ere, egun bakoitza, piezetako bakoitza, Scheherazaderen gauetako bakoitza, bere horretan, hutsaren hurren da, **arnasaldi** bat besterik ez. Imanol Zurutuza

Baina patuak ez du halakorik nahi izan -Liebkind Bendelek **arnasaldi** batean bota zuen hura guztia, eta ahotsa zorroztu egin zitzaion-. Koro Navarro

Nire birikak betetzen zituen **arnasaldi** bakoitza jainko apetatsu haien opari bat zela. Oskar Arana

Segundo bakoitzeko bost **arnasaldi** inguru. Julen Gabiria

Hiru-lau **arnasaldi**, agentziara sartzean nekarren argitu beharraren sua arrapizteko. Aingeru Epaltza

Gogoan izan, ene Jainko, bizitza **arnasaldi** bat dela, ene begiek ez dutela berriro zoriona ikusiko. Elizen arteko biblia

Batzuetan Avigdorrek zigarreta bat erretzen zuen, eta Anshelek zigarreta ezpainetatik kentzen zion **arnasaldi** bat egiteko. Koro Navarro

Arnasaldi bat besterik ez da gizakia!

Aalmoaren hitzetan gizakia **arnasaldi** baten antzeko baita. Imanol Unzurrunzaga

Arnasaldi baten eta bestearen artean hitz bakar bat esan bedi, eta **arnasaldi** batetik besterainoko uneak diraueino, pentsa bedi batik bat zer esan nahi duen halako hitzak. Patxi Altuna

Eukaliptus lurrinezko **arnasaldi** batzuk egin, dutxatu eta kalera irten nintzen. Karlos Linazasoro

Lo hartu eta gero ere, ametsetan, "Ibarretxe", "Bai", "Ez", "Estado Español", "Euskadi" eta antzeko hitzak ernetzen dira **arnasaldi** eta zurrunga artean. Bernardo Atxaga

Ihesak, bizitzen segitzeko behar diren **arnasaldiak**, norberaren edo besteren morrontzaren mezulari pozoitsuak. Lourdes Oñederra

Hatzak bularraren **arnasaldiarekin** batera ari dira. Alberto Barandiaren

Oro har, arnas erritmoa nabarmen jaisten da eta **arnasaldien** maiztasuna gutxitu. Lourdes Oñederra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lur librean oina ipini zuenean ezin zuen sinetsi berak ez zekiena jakitea Hallek: **arnasaldi** libre bakar bat ere hartu gabeko Hallek jakitea ez dagoela askatasuna bezalakorik munduan. Anton Garikano

Hatzek amore eman zuten eta Sethek **arnasaldi** handiak irentsi behar izan zituen. Anton Garikano

Eserlekuaren bizkarrean bermatu nintzen eta **arnasaldi** luze bat egin nuen, aitaren burua inguratzen zuen tristurazko airea iruditu zitzaidana barneratuz. Koro Navarro

Ohi baino **arnasaldi** luzeagoa egin zuen aitak. Anjel Lertxundi

Neskaren **arnasaldi** lasaiak bularraldeko argi-itzalak higitzen zituen, gora eta behera, modu akonpasatu batez. Anjel Lertxundi

Gabardina ongi egokituta, bizpahiru **arnasaldi** sakon hartu zituen. Alberto Ladron Arana

Bekoz beko jarririk, **arnasaldi** sakonak egiten, begiak bi izotz-puska, isilik egon zen lipar batean. Migel Angel Mintegi

Zigortu ditu, bai, eta kanpora bota; mendebal-haizearen antzeko **arnasaldi** gogorrez eraman ditu urrutira. Elizen arteko biblia

Gero, **arnasaldi** sekulakoa bota eta orroka lasaitu zituen kirioak. Anjel Lertxundi

Eukaliptus lurrinezko **arnasaldi** batzuk egin, dutxatu eta kalera irten nintzen. Karlos Linazasoro

Begiak itxita edo tarteka Sabethi begira: oso-oso **arnasaldi** bakanduak bereak. Joxe Austin Arrieta

Pausa egin zuen, nik galderei erantzuteko baino, **arnasaldi** gero eta etenagoa baretzeko. Anjel Lertxundi

Italian, gerra osteko lehen urteetan, egoera politikoa oso arriskutsua zen: gerrak eta faxismoak bere azken **arnasaldietan** piztutako gorroto eta etsaitasunek bizirik zirauten, mendekuzko hilketak eta kontu-konpontze politikoak eguneroko gauza ziren. Koldo Biguri

3 (hitz elkartuetan)

Tira, motel, txorakeria batengatik horrela deskontrolatzea ere, esan nion neure buruari, sabel-**arnasaldi** batzuk saiatzen nituelarik. Karlos Linazasoro

Bukatu nuenean, sumin-**arnasaldi** bat atera zitzaion: [...]. Anjel Lertxundi

Joan den asteazkenean denboraldiko hil edo biziko lehen partida nota onarekin gainditu izanak ilusio **arnasaldia** eman dion arren, oso lantegi zaila da Gasteizko taldeak aurrerantzean duena. Berria - Kirola

4 irud/hed

Magnus Ligako lehen garaipena lortuta, gutxienez astebeteko **arnasaldia** hartzeko arrazoia ukanen du Hormadik. Berria - Kirola

Magnus Ligako lehen garaipena lortuta, gutxienez astebeteko **arnasaldia** hartzeko arrazoia ukanen du Hormadik. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arnasaldi bakoitzean (3); **arnasaldi bat besterik** (4); **arnasaldi baten** (3); **arnasaldi sakon** (3)

---

arnasarazi, arnasaraz(i), arnasarazten du *ad* arnas hartzera behartu.

Zauriak lotu eta kanforra **arnasarazi** zien, bere arreta Setheri eman aurretik. Anton Garikano

---

arnasbehar *iz* arnasa hartzeko beharra.

Kirxak, arranguraren arranguraz, **arnasbehar** bortitza egin zuen. Patxi Zubizarreta

Atsegin nuen nire barnean urtzeak sortzen zion plazerra belarri ondoko oihuska eta **arnasbehar** haien bidez adieraztea. Aitor Arana

Orain etxea isiltasunez betea da, taupada entzungaitza baizik ez da igartzen, hiriaren **arnasbeharra** izan daiteke, edo ibaiaren mugimendua, edo, besterik gabe, zuzentzailearen bihotza. Jon Alonso

Ahuleziaren oinazea, **arnasbeharrak**, auhenak, begirakune lausotuak eta, finean, gorputzetiko bizitzaren aldentzea. Patxi Zubizarreta

Gisa batez, lehen **arnasbeharrek** elearen urritasuna eskatzen zidaten. Piarres Aintziart

---

arnasbehartu, arnasbehar(tu), arnasbehartzen du *ad* arnastera behartu.

Nahasirik, emakumeekin nola borrokatu behar den jakin gabe, udaltzain albinoak iletik heltzen zion batzuetan, papar zabaletik beste batzuetan, eta azkenean, **arnasbeharturik**, lurrera botatzea lortu zuen. Jose Morales

Labe bafada bero bat igarotzen zen aurpegiaren gainetik, bularra **arnasbehartuz**. Josu Zabaleta

Sablé andrearen begiak astuntzen, ahoa dardarka hasten, bularra **arnasbehartzen** ikusi nuen. Josu Zabaleta

Eta bezperan topatzean erreparatu ez zion guztia ikusi zuen orain: zahartua zen, zurbila, hanpatua eta **arnasbehartua**. Matías Mujika

---

arnasbehera *iz* arnasa botatzea.

Hotsaren sortzean esku hartzen duten faktoreak **arnasbehera**, aho artikulazioa, laringearen dardara eta sudur erresonantzia dira. Isabel Arrigain

Tomek hots txiki bat egin zuen, **arnasbehera** bat, irri txiki baten eta karkaila baten artekoa. Oskar Arana

Esaterako, **arnasbeherak** -osagai positiboa baina fonazio ekintza osoan parte hartzen duenak- ez du balio fonemak bereizi ahal izateko. Isabel Arrigain

---

arnasberritu, arnasberri(tu), arnasberritzen *(ETCn **140** agerraldi, horietatik **76** azken sei urteetan)* du *ad* arnasa berritu; eraberritu.

Edan ondoren, **arnasberritu** eta indartu egin zen Sansom. Elizen arteko biblia

Gero, Benegoitia **arnasberritzea** lortu dutenean, bi begiraleen jokabidea gaitzetsi du aldarri sentikor baten bidez, eta zentzuduna beste hitz egokiagorik aurkitzen ez diodan erabaki baten berri eman du aldarriaren azkeneko puntuan. Anjel Lertxundi

Toki garai eta sakratuan bizi naiz, baina hurbil nago atsekabeturik eta lur jota daudenengandik, lur joak **arnasberritzeko** eta atsekabetuei adorea bizkortzeko. Elizen arteko biblia

Jaunaren hitza ezin hobea: gizakia **arnasberritzen** du; Jaunaren manamendua fidagarria: heldugabea zuhurrarazten du. Elizen arteko biblia

Eredu zaharkituaren ukaziotik sortu nahi den modelo **arnasberritua** da alternatiboa. Txema Ramirez de la Piscina

---

arnasberritzaile *izond* arnasberritzen duena.

Gure **arnasberritzailea**, Jaunak gantzuturiko erregea, preso erori da etsaiaren sarean. Elizen arteko biblia

---

arnasbide 1 *iz* aireak biriketarako bidean igarotzen dituen barrunbe eta hodiak.

Aurpegiko ehun batzuk hondatu zizkion hozminak, baina **arnasbideetan** ez zuen eztarriko mina beste kalterik izan. Irene Aldasoro

Galdetzeko puntadan egon nintzen galtzak zertan diren **arnasbidearen** trabagarri, baina ez nuen galdetu. Aingeru Epaltza

Lasaitu ederra hartu nuen, zinez, hiltegitik irtendakoan, kirats nazkagarri hartatik aldentzean, leku haren cm2 bakoitzean barneratua baitzen, antza, eta urdailari eta arnasari eutsarazi baitzidan behin baino gehiagotan, botaka ez hasteko; lasaitu ederra, kanpoan ginela, **arnasbideetan** barrena sartzea aire garbi suspergarria, odolaren eta barrenkien usainaz usteldu gabea. Xabier Olarra

Sentimen honen egitekoa ez dute betetzen ez begien trebeziak, ez entzumen organoek, ez **arnasbideek**, ez dastamenak, ez inolako ukimen fisikok. Imanol Unzurrunzaga

Umea porroak erretzen hasi dela eta tragedia lazgarri baten moduan aurkezten du erreportaiak gertaera, cannabisari gaitz hauek denak egotziz: nahasketa mentala, errealitatearen pertzeptzio deformatua, **arnasbideetako** zauriak, motibazio eza, laxokeria, antsietatea, bronkitisa, minbizia, faringitisa. Pako Aristi

Ezpainetatik listua bits bihurturik zerion, borborka, **arnasbidea** buxatzen ziola. Lopez de Arana

Nola hartuko zuen arnasa lasai plastikozko hodi ikaragarri hark ixten bazizkion **arnasbideak** eta, batez ere, haren beldurrez bazeuden bere eztarriko bazter guztiak? Hasier Etxeberria

Kalean egonez gero, babestu **arnasbideak** zapiekin edo trapuekin, eta bilatu azkar aterperen bat. Berria - Euskal Herria

Gaitzaren sintomak asko diren arren, oso ohikoa izaten da **arnasbideetan** infekzioak agertzea. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Kutxatxoak zuloak zituen **arnasbiderako**, eta goma elastikoak inguru osoan. Mirentxu Larrañaga

Arnasbide zitzaizkidan euskarazko eskola horiek, filosofiakoen aldean. Joxerra Garzia

Sabelean, gainera, **arnasbideak** egin behar dira, haizearen indarra atera eta lasatzeko. Santiago Iruretagoiena

Sabelean, gainera, **arnasbideak** egin behar dira, haizearen indarra atera eta lasatzeko. Santiago Iruretagoiena

Urak bero espezifiko altua duenez, kopuru txiki batek nahikoa bero gordetzen du; **arnasbideetako** barne-estaldura hezea berogordailu bikaina da, beraz, sartzen eta irteten den airearentzat. Irene Aldasoro

3 ***beheko arnasbideetako infekzio*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Goiko nahiz **beheko arnasbideetako infekzioa** da, arnasteko zailtasuna ekartzen duena, arnasa hartzeko orduan batez ere. ETC-prentsa

Indikazioak: abdomen barneko infekzioak, **beheko arnasbideetako infekzioak**, ginekologikoak, hezurretakoak... ETC-zientzia, zuzenbidea

Beheko arnasbideetako infekzioa pneumoniaren sinonimo gisa erabiltzen den terminoa da, baina beste infekzio mota batzurena ere, hala nola birika-abzesu eta bronkitis akuturena. ETC-entziklopedia

4 ***goiko arnasbide*** *(corpusean ez dago; ETCn **46** agerraldi)*

Goiko arnasbideak kaltetzen ditu, hau da, sudurra eta eztarria. ETC-entziklopedia

Biderik inportanteenak goiko nerbio laringeoa eta nerbio bagoa izaten dira; bide horien errezeptore erreflexogenoak **goiko arnasbideetan** eta pleuran daude, estimulu mekaniko, kimiko edota termikoengatik estimula daitezkeenak. ETC-entziklopedia

Goiko arnasbideetako infekzioak goiko arnasbideko hainbat gaixotasun infekzioso barne hartzen ditu. ETC-entziklopedia

Zurrunga **goiko arnasbidearen** egituren bibrazioa eta honek sortutako soinua da, loa bitartean haize jarioaren buxadurak eragindakoa. ETC-entziklopedia

Umeek eztul iraunkorra eduki dezakete egun batzuetan, arnas arazo akutu batek eragina, birusen batek sortutako **goiko arnasbideetako** infekzioren batek esaterako, baina pixkanaka eztula desagertuz joango da. ETC-prentsa

Gaitz hori sorraraz dezaketen kanpoko faktoreak asko diren arren, normalena **goiko arnasbideetako** infekzio batek eragindakoa izatea da. ETC-prentsa

Loaldian behin eta berriz **goiko arnasbideak** ixtea eragiten du apneak. ETC-prentsa

Goiko arnasbideetako katarroa dagoenean, ahots-kordetako mukosa kongestionatua egoten da, eta ez da komeni ahotsa behartzea. ETC-prentsa

Bestea, sudurretikoa, **goiko arnasbideetan** modu lokalizatuan gertatzen diren gaitzak bakarrik tratatzeko erabiltzen da; esaterako, errinitisa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Goiko arnasbideetako infekzioen ohiko konplikazio bat erdiko belarriko otitisa da, hots, erdiko belarrian gertatutako bakterio-infekzio bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***goiko arnasbideetako infekzio*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Goiko arnasbideetako infekzioak goiko arnasbideko hainbat gaixotasun infekzioso barne hartzen ditu. ETC-entziklopedia

Umeek eztul iraunkorra eduki dezakete egun batzuetan, arnas arazo akutu batek eragina, birusen batek sortutako **goiko arnasbideetako infekzioren** batek esaterako, baina pixkanaka eztula desagertuz joango da. ETC-prentsa

Goiko arnasbideetako infekzioen ohiko konplikazio bat erdiko belarriko otitisa da, hots, erdiko belarrian gertatutako bakterio-infekzio bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zenbait lekutakoek ez dute garrantzirik, adibidez iztaietakoek heldu zaharretan (traumatismoak eta infekzioak beheko gorputz-adarretan) eta lepokoak haurretan (**goiko arnasbideetako infekzioak**). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arnasbotatze *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)* *iz* arnasa botatzea. ik **arnasbehera**.

Arnasbotatzea edo arnasbehera arnas hartzearen aurkako fenomenoa da, non biriketan dagoen airea hauetatik ateratzen den. ETC-entziklopedia

Eztula espirazio (**arnasbotatze**) azkarra da, zeinek arnasbideen edukia kanporatuz abiadura handiko aire-fluxua sortzen duen. ETC-entziklopedia

---

arnasestu **1** *iz* arnas hartze larria, nekeak edo eritasunak eragina.

Elkartze sexuala zentzumen guztien gozamena da: larruazala, gorputzeko biribiltasunak, ipurmasailak eta genital eder eta beroak ikustea; xuxurla, **arnasestu** eta hasperenak entzutea; gure hezetasunak usaintzea; txoko guzti-guztien zaporea dastatzea. Luis Elberdin

Arnasestu eta hasperenetatik irudikatzen nuen zakila gogor-gogorra zuela, bere zainak lehertzeko moduan nabarmenduko zirela, bere mutur distiratsua adurra dariola zegoela, korritzeko zorian, erremediorik gabe. Juan Martin Elexpuru

Arnasestua, sudur ziztua eta ostikoen hotsa besterik ez zen entzuten. Jose Morales

Hatz bat sartu zion lehenengo, gero bi, gero hiru eta gero esku osoa, sartu eta atera, sartu eta atera hasi zen, ganoraz, neska intziri zorrotz batez korritu zen arte, eta enborra bezala bueltaka amaitu zuten ohe gainean, **arnasestu** batean. Juan Martin Elexpuru

Nire gorputzeko ile guztiak tentetzen sentitu nuen, eta alderik alde zeharkatzen ninduen hotzikara bat, eta nire **arnasestua**, eta nire garraisirik gabeko garraisia, zakilak nire ahoan atzera eta aurrera jarraitzen baitzuen. Juan Martin Elexpuru

Joana mutu geratzen da bat-batean, bien **arnasestua** baino ez da entzuten. Antton Olano

Berriro ez joateko eskatu zion Lucasek ordea; bakarrik geratzean **arnasestua** larritzen zitzaiola, eta imajinazioa izango zela beharbada, baina on handia egiten ziola Marcos ondoan ikusteak. Unai Elorriaga

Igual ez ninduela ikusiko pentsatu nuen, betazalak behin ere jaitsi gabe eta **arnasestua** leundu ezinik, soldadu erraldoi haren eztul latza entzun nuenean berriro bertatik bertara. Joseba Sarrionandia

On handia egin ziola Marcos ikusteak, **arnasestua** erabat joan zitzaiolako, trankildu egin zelako erabat. Unai Elorriaga

Hankak zabaldu nituen pozez gainezka, gustatzen zitzaidala eta jarraitzeko esan nahi nuen, zerbait egin nahi nuen esku hark ni ferekatzen jarrai zezan, baina **arnasestuak** ez zidan uzten. Juan Martin Elexpuru

Behin eztarria garbitu eta **arnasestua** amiñi bat sosegatu zuelarik, Mirandek emakumearengana burua jiratu zuenean. Harkaitz Cano

Atzokoak ez bezalakoak izango dira biharko oihuak, intziriak, **arnasestuak** eta negarrak. Berria - Kultura

Atzamarrak poliki mugituz, ezkerreko botoiak ia sakatzeke, hauspoaren nekea entzuten genuela, **arnasestuan** baina itotasunik gabe. Koldo Izagirre

Entzun daitekeen soinu bakarra euren **arnasestuena** da. Julen Gabiria

Deabruak ez zuen izerdirik ez **arnasesturik** egiten; ez zen nekatzen, antza. Aitor Arana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Haren **arnasestu** sakona entzun nuen, haren eutsi ezinezko zirrara. Jon Muñoz

Ondoren, elkar besarkatu dute **arnasestu** basatian. Xabier Paya

Komunera jo dut, baina han ere pentsakor geratu naiz bikote baten **arnasestu** bateratua entzun dudanean. Patxi Zubizarreta

Zaldi bizkorrak, euren gorputza lo datzala ere, izerditzen eta **arnasestu** etengabean ikusiko dituzu, giharre guztiak atezatuz, palmadarraren bila edo ukuilu irekietatik lasterka oldartzean bezala. Xabier Amuriza

Eta ez eta bai, gero ez zuten ezer esaten, baina gure aita bafadak eta sekulako **arnasestuak** egiten hasi zen, eta azkenean ilehoriak ere **arnasestuak** egiten zituen gure aitari mesede bat egiteko, baina ez ziren aitarenak bezain ozenak, gure aitak hain ozen egiten zituen, ze ofizialek ere oso ongi entzun zitzaketen ondoko gelatik. Pello Lizarralde

Klitoria laztantzeak jarriko dituela bero-bero, horrek eragingo dizkietela plazerezko **arnasestu**, eszitazio eta beroaldi paregabeak. Luis Elberdin

Otsoaren amorruzko, hirazko **arnasestua**. Jon Maia

Arrokara itzuli zirenean, beren laguna ahoz gora etzanda ikusi zuten, oinak eta eskuak janda, aurpegia karraskatua, sabela karramarroz borborrean, bi saihetsetako larruazala astinarazten ziotela, heriozko **arnasestu** sumindu batek erdi jandako gorpu oraindik fresko hura alderik alde zeharkatu izan balu bezala. Karlos Zabala

3 irud/hed

Gau hartan berriro aditu nuen Serge Gainsbourg-Jane Birkinen **arnasestu** musikala. Xabier Mendiguren Elizegi

Kirxak **arnasestu** burrunbatsua egin zuen. Patxi Zubizarreta

4 (izenondo gisa)

Ez du izenik -pausa egin zuen Andreasek, agurearen harridurazko hots **arnasestuak** entzunik. Anjel Lertxundi

5 (hitz elkartuetan)

Arnasestu hotsa isiltzen saiatu zen haizea sudurtzuloetatik botatzen. Unai Iturriaga

Aditu egin ditzakegu, garrasi hotz eta motz ebakiak, metrailadoreen hil-**arnasestu** korrokariak, fusilen tiro-hots labur bereiziak, stacattoan bezala aditzen direnak. Mirentxu Larrañaga

---

arnasestuka **1** *adlag* arnasa hartu ezinik. ik **arnaska**; **hatsanka**.

Arnasestuka hasi nintzen... albetan nengoen. Koro Navarro

Arnasestuka eta bihotza taupa eroan nuela iritsi nintzen ostatura. Anjel Lertxundi

Arnasestuka zeuden, eta langara lasterka hurbildu zirela ematen zuen. Iñaki Mendiguren

Emakume handi musugorri bat, gasazko jantzi zuri-beltza soinean, **arnasestuka** sartu zen gelan. Lopez de Arana

Hatsanka eta **arnasestuka** aritzen zen etengabe, ehun metroak korritu berriak balitu bezalaxe. Patxi Zubizarreta

Aita ikusten du soroa ildoz ildo oinkatzen, mokorrez mokor zapaltzen, eskuarez bezala berdintzen, sasiak, zuhaixkak, karduak eskopetaz jotzen; bitartean Piramo bera, ahituta, itzal bila dabil; une batez etzan eta **arnasestuka** egon da, mingain osoa kanpoan. Itziar Otegi

Beste dutxa bat jausi zen sabaitik, eta dardaraz, itorik, **arnasestuka** erori zen doktorea bere bainu aska izoztuaren barrenean. Josu Zabaleta

Eskaileran musu ematen hasi zitzaidan, suharki, **arnasestuka**, eta berdin jarraitu zuen hall-ean ere, oso irekia eta argitsua den arren. Ramon Saizarbitoria

Karrika isilik geratu denean, gabardinadun gizona azaldu da **arnasestuka** aldapan gora. Javi Cillero

Arnasestuka, Maxengana bildu, eta don Ottaviok jakinarazi berri ziona esan zion Ruche jaunak. Jon Muñoz

-Uste dut kendu dugula gainetik -esan zuen Harryk **arnasestuka**, horma hotzaren kontra jarri eta bekokia lehortuz. Iñaki Mendiguren

-Ea, ba, **egin azkar**, ezin dut arnasarik hartu eta! -esan zion Harryk arnasestuka, bularra inguratzen ari zitzaion landarearen kontra borrokan. Iñaki Mendiguren

BLANCHEk barre egin du **arnasestuka**. Itziar Otegi

Zamaren pisuaz **arnasestuka**, Samek bihurgunea igaro zuen eta orduantxe haitzetik erortzen zen zerbait ikusi zuen soslaiz, doi-doi, pasatzean askaturiko haitz beltz baten zatia-edo. Agustin Otsoa

Eguzkia atera zen eta, haizea hotz bazen ere, laster ari ziren izerditan eta **arnasestuka**. Agustin Otsoa

Leher egina eta **arnasestuka** ikusiz, aita txit santuak, errukiturik, galdetu zion: "Zer nahi duzu, andrea?". Askoren artean

Zer zen ikustera joan nintzen; katu bat zen, lakioan harrapatua, itotzen, **arnasestuka**, hiltzen. Josu Zabaleta

-Arraioa, haizea baino arinago egiten du korrika -esan zuen Royk **arnasestuka** eta zabuka, Herfen sorbalden arrimuan. Lopez de Arana

Belauniko erori nintzen, ito beharrean, zotinka, **arnasestuka**. Josu Zabaleta

Norbaitek "sua" hitza jaulki zuen **arnasestuka**. Lopez de Arana

Azkenean txixa sendo eta txuria botatzen dute, beraiek "esnea" eta "hazia" esaten diotena, begiak itxita eta **arnasestuka**. Aitor Arana

Normandiarrak mehatxuak **arnasestuka** eta zezelka esaten zituenez, zera gehitu zuen Clairek: […]. Karlos Zabala

-Estutu ipurdia, urdanga hori, estutu ipurdia! -eskatu zidan bat-batean, **arnasestuka**. Juan Martin Elexpuru

-Ahalik eta azkarren ibili naiz -esan zuen, **arnasestuka**. Julen Gabiria

2 irud/hed

Atoiontziak, **arnasestuka**, kotoi itxurako kezko bafadak botatzen zituen, guztiak ere neurri berekoak. Lopez de Arana

Trena abiadan doa dardaraka, gogor, ia **arnasestuka**. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arnasestuka ari zen (6); **arnasestuka gelditu** (3); **arnasestuka hasi** (7); **arnasestuka iritsi** (6); **arnasestuka sartu zen** (3); **arnasestuka zegoen** (5); **arnasestuka zeuden** (3); **artean arnasestuka** (3); **du arnasestuka** (3); **ere arnasestuka** (3); **esan zuen arnasestuka** (4); **ia arnasestuka** (3); **naiz arnasestuka** (3)

---

arnasestutu, arnasestu(tu), arnasestutzen **1** da/du *ad* arnasa estutu, arnasa hartzea eragotzi.

Ez ziren inondik inora **arnasestutu** gazte haiek! Jon Muñoz

Laster **arnasestutu** nintzen, burua gorri-gorri, sarritxotan makurtu beharra bainuen pilota jasotzera, baina neskak ere erantzi behar izan zuen jaka, eta blusa-mahukak jaso, ni menderatuko baninduen, eta bere motots gorria garondo aldera atzerantz jaurti ere bai, artega. Joxe Austin Arrieta

Berriro bakeak egin zituenean, bere buruari galdezka ari zen, **arnasestuturik** esertzen zen bitartean, gauzak diren bezala harturik, bere zakurrak ez ote zuen erakutsi gertaera hartan maltzurtasun gehiago "piztietan maltzurren" deitu ohi den hark baino, eta harri eta zur eginda geratu zen. Josu Zabaleta

Beroak hauspoak **arnasestutzen** zizkigun eta izerdiak ere ez ziren nolanahikoak izan. Karlos Linazasoro

2 (era burutu izenondo gisa)

Isiltasuna eten zuen gero, posturaren zailtasunak behartutako ahoskera **arnasestutu** batez. Anjel Lertxundi

---

arnasetenka *iz* arnasestuka.

Mostradoreari bizkarra emanda, Esteban taxista **arnasetenka** hizketan hasi da. Pako Aristi

---

arnasezin *izond* arnastezina.

Leku **arnasezin** horretatik lehenbailehen alde egin, horra nire desira bakarra. Aingeru Epaltza

---

arnasgabe **1** *izond* arnasik ez duena.

Eta harresi haietarik bat herri xeheak eraikia zen, bere sineskeriekin eta ipuin fantastiko haiekin; eta bertzea, Erromak eraikia, bere dotrina zurrun bezain **arnasgabe** harekin. Joan Mari Irigoien

Gauza ederrekin gozatzen hasi eta laino guztien gaineko ezereztegietan flashaturik eta ezin bizizko ezleku **arnasgabeetan** flipaturik bukatu: horixe da mendizale jonkitu edo mendigoizale puntarengoaren karrera, heriotzaren mugetarainoko jolas zoro batek koroatzen eta tontortzen duena. Iñaki Segurola

· Berauen ikuskizunak zentzugabearen grina pizten du, idolo hilaren **arnasgabeko** irudia irrikatzen duelarik. Elizen arteko biblia

2 (adizlagun gisa)

Ez zen bakarrik gauza miragarria ikusteko; kondairazko irudi bat zen, haren deskribapen hutsak **arnasgabe** uzten zintuelarik". Iñaki Mendiguren

Ez zuen ikusi nola erori zen bere ama zaharra banku batean **arnasgabe** ia. Karlos Zabala

---

arnasgabegarri *izond* arnasa hartzen uzten ez duena, arnasgabe uzten duena.

Laboratorioa laino **arnasgabegarri** batez bete zen aurki, ez baitzen inola ere irriegingarri; bertan behera utzi genuen saioa, ondo ordu onean utzi ere, ez baikenekien noski zer gerta daitekeen gatz leherkor hori behar adinako artarik gabe berotuz gero. Juan Garzia

---

arnasgabetu, arnasgabe(tu), arnasgabetzen *da/du* ad arnasik gabe gelditu; arnasik gabe utzi.

Pare bat minutu itxaron eta alde egin nuen, ez bat eta ez bi, neska gaixoa besoetan, lehenik berriro urrats arinka, harik eta berriro **arnasgabetu** nintzen arte. Joxe Austin Arrieta

Eta, neure bizimolde berriaren bideratzeko, ez nuen esku hertsirik eta egitekotsurik nahi, zeren eta esku hertsiak itotzeraino eta **arnasgabetzeraino** hertsi baininduen urte luzeetan, baina esku laxoa eta alferra, zeren hats hartu nahi bainuen, eta biriketan munduko aire guztia sartu nahi nuen Joan Mari Irigoien

---

arnasgailu *iz* arnasa hartzeko gailua.

Goibel samar zeukan aurpegia, eta ahora eraman zuen eskua, **arnasgailu** batez arnasa hartzeko. Javi Cillero

Asmaren aurkako **arnasgailuak**. Berria - Kirola

Zirkulu batzuk egin nituen, oxigeno gutxi dago maila horretan, orduan ez genuen **arnasgailurik** eta horrelakorik, birikak behar ziren orduan, eta halako batean kamikaze batek bezala egin nuen murgil Españarantz, motorrari gero eta gehiago eskatuz. Koldo Izagirre

Ez dugu Arafat bizirik mantentzen duen **arnasgailua** itzaliko. Berria - Mundua

Polio kasuetan, arnasketarako muskuluak paralizatu direnean, altzairuzko birikaren gisako **arnasgailu** mekaniko baten bidez airea zuzenean trakeara (zintzurhestera) sartzen da presioan, eta, handik, gaixoaren biriketara igarotzen da. Irene Aldasoro

Garatu duten **arnasgailu** likidoak perfluorokarbonoa erabiltzen du. Berria - Gaiak

---

arnasgaitz *izond* arnasteko gaitza dena.

lau haize haietarik bertze haize guztiak sortu ziren, eta haien fereka nabaritu nuen plazako aire **arnasgaitzean**, jendeak osabari egiten zizkion irrien artean. Joan Mari Irigoien

---

arnasgarri *izond* arnas daitekeena.

Gaizkia **arnasgarria** zen ia. Alberto Ladron Arana

Hura eta ia **arnasgarri** zen ilunpe trinkoa. Alberto Ladron Arana

· *adlag* Mezak bukatu berria behar zuen, ostatu bakarreko atarian hainbat gizon ikusi bainuen baso bana eskuetan zutela, egun erregarria izatekoari **arnasgarri** gelditzen zitzaizkion azken minutuez gozatzen. Aingeru Epaltza

---

arnasgora *iz* arnasa hartzea.

Lo dagoen ikaslea, loaldiko **arnasgora** sakonetan tabako guztia sudurretik irentsita, bat-batean esnatu eta jauzi batez altxatzen da ohetik. Jose Morales

Tenperaturaren oreka lortu arte jarraitzen du prozesu horrek, hau da, **arnasgorako** aireak eta sudur-mukosak 30-32 gradu inguru iritsi arte. Irene Aldasoro

Arnasgorako aireak hartu duen beroaren % 25 inguru kanporako arnasan itzultzen da; gainerakoa galdu egiten da, arnasan botatako airea atmosferan nahastean. Irene Aldasoro

Biriketan oxigenoa eta karbono dioxidoa behar bezala trukatzeko, odolak hurbil egon behar du **arnasgoran** harturiko airea igarotzen den gainazaletatik. Irene Aldasoro

Odolak, bada, kapilar deritzen hodi txiki-txiki batzuetatik igaro behar du biriketan barrena, **arnasgoran** harturiko airetik ahalik hurbilen egon dadin odol guztia trukea egiteko. Irene Aldasoro

---

arnasgune *(ETCn **751** agerraldi, horietatik **644** azken sei urteetan)* **1** *iz* arnasa hartzeko gunea.

Virgilek berak oso-oso larri jarraitzen zuen, zeren gaixotasunak, pneumonia bera hobetzen ari bazitzaion ere, mugako arnasa-gutxiegitasuna eragin baitzion -garuneko **arnasgunea** ia erabat gelditzea, alegia- eta hark galarazten baitzion modu egokian erantzutea odoleko oxigenoaren eta karbono dioxidoaren mailei. Xabier Olarra

Pickwick sindromean, arnasaren depresio larria eta odol guztia oxigenatzeko gutxiegitasuna gertatzen dira, garuneko **arnasgunearen** depresioari lotuak. Xabier Olarra

Arriskutsuegi iritzi genion, ordea, bide horri, garuneko **arnasgunearen** depresio epe-luzekoa edo iraunkorra eragin baitziezaiokeen. Xabier Olarra

2 irud/hed

Lekuonaren poesia eresi bat da, ez da barne-adierazpen soila; antzinatik datorren kantu zaharraren hotsik sakonenak dakarzkigun **arnasgunea** da. Berria - Harian

---

arnaska **1** *adlag* arnasestuka; arnasaren bidez.

Pantxo begiak itxita egon zen pixka batean, eta **arnaska** hasi zen gero. Bernardo Atxaga

Konpainia-burua **arnaska** arituko da, amesgaizto batetik irtena balitz bezala. Josu Zabaleta

-Askatu! Itotzen ari naiz! -bota zuen Dembak, **arnaska**. Anton Garikano

Badoa apaiza maldan gora, **arnaska**, ilargitan itzal beltza arrastaka daramala Handik gutxira, gizon bat sartu zen, deseginda, **arnaska**, ikara zuela aurpegian. Anjel Lertxundi

Han geratu zen zutik, akiturik, hasperenka, **arnaska**, eta halere txapeldun eta garaile. Anton Garikano

Azkenean, **arnaska**, eskailera-burura iritsi ziren. Iñaki Mendiguren

-Ez al zaigu trote hauetarako sasoia joaten ari? -dio Inaxiok **arnaska**. Pako Aristi

Julio ere geldirik zegoen, **arnaska**, ukabilak estututa. Juan Kruz Igerabide

Izerditan eta **arnaska**, armairuak utzitako txokoan jarri zen, hormaren kontra. Anton Garikano

Pantxo begiak itxita egon zen pixka batean, eta **arnaska** hasi zen gero. Bernardo Atxaga

Lipar batean **arnaska** gelditu ziren, mutu eta ikaragarri, okelen gainetik. Karlos Zabala

Asierrek alua laztandu dio lipar batez Itxasori, hau berriro **arnaska** sentitu duen arte. Pako Aristi

Inor ez zen mugitu eta denak isilik zeuden, Petigrew izan ezik, hura **arnaska** ari baitzen bularrari helduta. Iñaki Mendiguren

Amorruz **arnaska** segitzen zion tranbiari. Anton Garikano

Han gelditu zen, nekeaz eta nazkaz **arnaska**, eta atea jo zuen. Irene Aldasoro

Andereñoa ozen **arnaska** ari zen, etengabe bularrari helduta. Iñaki Mendiguren

Andreasek orain esku bat eta gero bestea lematik askatu, eta ezpainetara eramaten zituen, gero eta sarriago, **arnaska** berotzeko. Anjel Lertxundi

Gero ahora bildu zituen, **arnaska** berotu nahi izan zituen. Koldo Izagirre

Geldituak geunden patioaren erdian, eskuak **arnaska** berotzeari utzita. Koldo Izagirre

Udan asmak jotzen du eta **arnaska** uzten. Oskar Arana

Zakurra jauzi batez igo zen Lydieren buroko aulkira, mihia dilindan eta **arnaska**. Harkaitz Cano

2 irud/hed

Lurrun-makina ematen zuen **arnaska**. Anton Garikano

3 (izen gisa)

Erregua dirudien **arnaska** mota hori. Pako Aristi

Asier Itxasoren bularrak laztantzen hasi da, **arnaska** batean. Pako Aristi

Motorraren urruma isiltzeaz batera, ordea, Koioteren **arnaska** estua entzun dute. Patxi Iturritegi

4 ***arnaska egin***

Bart utzi zion **arnaska egiteari**. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arnaska ari zen** (3); **arnaska hasi zen** (3); **arnaska zegoen** (3)

---

arnaskatu, arnaska(tu), arnaskatzen du *ad* arnasestuka esan.

-Ohean sartzera noa - **arnaskatu** zuen Pepponek. Koldo Biguri

-Baita ni ere - **arnaskatu** zuen On Camillok. Koldo Biguri

---

arnaskera *iz* arnas egiteko era.

Atso edo agure horrek itzelezko zuloak izanen ditu bularrean, eta bizkarretik bularrerako zuloetatik sartuko zaio haizea ffiuuu eginez, eta hor joanen da astiro bere **arnaskera** agonikoarekin. Joseba Sarrionandia

Julian sumatzen nuen aldamenean, **arnaskeran** antzematen zitzaion esna zegoela. Xabier Mendiguren Elizegi

---

arnasketa 1 *iz* arnas hartzea.

Behar bezala zegoen dena: tentsioa, **arnasketa**, bihotza. Jon Muñoz

Arnasketa eten zitzaion. Lopez de Arana

Urrats batzuk aditu ziren lasterka eskaileretan behera eta denek **arnasketa** gelditu zuten. Elena Touyarou

Gizonaren solasak sortarazitako izuak **arnasketa** galarazten zion. erraldoiaren **arnasketa** estutzen hasi zen laster eta bekokia izerdiz busti zitzaion. Lopez de Arana

Arnasketak oxigenoa nola, idazketak ere irakurketa behar du, baina egunean idatzitakoa. Anjel Lertxundi

Ona dago bazkaria, jendez ia erabat baretu den tabernan; badirudi elkarrekin eseri garenean, gure presentzia bateratuak lokalaren zoko guztiak bete dituela, jendeari **arnasketarako** ere lekua kenduz. Pako Aristi

Polio kasuetan, **arnasketarako** muskuluak paralizatu direnean, altzairuzko birikaren gisako arnasgailu mekaniko baten bidez airea zuzenean trakeara (zintzurhestera) sartzen da presioan. Irene Aldasoro

Apneak arnas hartze behartu bati jarraikion **arnasketaren** etenaldi iragankorra dituztenek ezin dute lo sakon egin. Berria - Gaiak

Sebastien Gonzalezek ariketa bereziak egin ditu, **arnasketaren** bidez urduritasunari aurre egiteko. Berria - Kirola

Ondo samar ezagutzen ditugu larruazalaren, hezurren, zirkulazioaren eta **arnasketaren** diseinua eta eginkizuna. Irene Aldasoro

Kalitatearen gainetik, ahots landuak zituzten, akats gabeko igorpen paregabea, eta **arnasketa** egokia gora-behera desberdinetan. Berria - Kultura

Arnasketa artifiziala egin behar izan zioten izerditan itota zegoelako. Koldo Biguri

Arnasketa mekanikoa dute bi beharginok. Berria - Ekonomia

Irakasleak etxe batetik irteten den **arnasketa** sakon eta sarkorra entzun du. Patxi Zubizarreta

Zurrunga leunak egiten zituen, zurrunga baino **arnasketa** sakan-sakonak, lasaigarriak hein batean. Sonia Gonzalez

Sabaitik esekiak, bi zaku handi eta lirdingatsu ikusi ditu, barnean bizia dutenak eta **arnasketa** ikaragarri horren sortzaile direnak. Patxi Zubizarreta

Iraun bitartean Maizak entzun zezakeen beste aldekoaren **arnasketa** urduriaren zurrumurrua. Migel Angel Mintegi

Eri batek esatea nik nire bizitzaren amaieran ez dut lagundutako **arnasketarik** nahi, eta, beraz, hori beharko nukeen egoera batera iritsiko banintz, nik ez dut horiek jartzerik nahi nire bizitza luzatzeko. Berria - Harian

Lagunduriko **arnasketa** jarri zioten eta anestesia dosi handia eman zioten. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan)

Arnasketa teknika erraza eta eraginkorra erabiliko dute bertan gorputza pausatzeko. Berria - Euskal Herria

Aireztatze artifizialeko **arnasketa** sistema kendu berri diote eta bi egunen buruan unitatetik aterako dute. Berria - Ekonomia

Giharrak indarra galtzen joaten dira, eta gaixoek **arnasketa** arazo larriak izaten dituzte. Berria - Kirola

Pultsuaren gorabeherak, atzo azkar, gaur motel, are motelegi ere, aurpegia gorrituta, Hannak zioenez, eta betseinak zeharo uzkur, gehi **arnasketa**-arazoak. Joxe Austin Arrieta

Horretaz gain, gehienez lau egun igaro zituzten arreta intentsiboko unitateetan eta gutxiagotan behar izan zuten **arnasketa** aparatua. Berria - Gaiak

Heriotza goiztiarrak ugariak dira eta **arnasketa** gaixotasunak ere bai, minbizi kasu ugari daude. Berria - Mundua

Arnasketa gaixotasunen oinarrizko arrazoietako bat etxe barruan janaria prestatzeko erabiltzen diren erregaietan aurkitzen da, eta Munduko Bankuak dioenez, 400 milioi ume eta andre kutsadura horren azpian bizi dira, eritasun grabeak hartzeko arrisku handiarekin. Pello Salaburu

Europako **Arnasketa** Elkarteak Europaren Birikei Buruzko Liburu Zuria aurkeztu zuen atzo. Berria - Gaiak

3 ***ahoz ahoko arnasketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Kike suspertzen saiatu nintzen ni, bihotz-biriketako bizkortzea egiten, eta **ahoz ahoko arnasketa** egiten, baina alferrik. ETC-literatura, saiakera

Funtsean, bihotzeko masajea eta **ahoz ahoko arnasketa** egitean datza bizkortzea: gaixoaren toraxaren erdialdean esku bat bestearen gainean jarriz, presioa egin behar da; lauzpabost zentrimetro sakatuz, minutuko ehun konpresio inguru egin behar dira. ETC-prentsa

Sorosleak saiatu ziren bere onera ekartzen **ahoz ahoko arnasketa** eginda, baina ezin izan zuten ezer egin. ETC-prentsa

Bitartean, berpizte lanak egitea (bihotz masajea eta **ahoz ahoko arnasketa**); eta, eskura izanez gero, desfibriladore erdi-automatikoa aplikatzea. ETC-prentsa

Azkenik, bosgarren faktorea ondoko itemek definitzen zuten: besteekin mahai-tresnak partekatzen dituena, **ahoz-ahoko arnasketa** egiten duena, besteen hortzetako eskuila erabiltzen duena eta komun publikoak erabiltzen dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 ***arnasketa anaerobio*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Arnasketa anaerobio edo arnasketa anaerobikoa: oxigenoak ez du parte hartzen, eta bakterio gutxi batzuek besterik ez dute egiten. ETC-entziklopedia

Desnitrifikazioa: **arnasketa anaerobio** mota bat da; NO3--a erreduzitu egiten da eta konposatu nitrogenodun gaseosoak ekoizten dira, bereziki, N2-a. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hartzidura elikagaiari gehitutako legamien, lizunen eta bakterioen entzimek eragindako **arnasketa anaerobio** mota bat da, normalean jakiaren karbohidratoak deskonposatzen dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***arnasketa abdominal*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Arnasketa abdominalari ekiteko, lasai eta eroso egon behar dugu: azalera ez oso bigun baten gainean etzanda, eserita baina bizkarra inon bermatu gabe, edo baita zutik ere, bakoitzak nahiago duen jarreran, baina beti modu lasai eta eroso batean. ETC-prentsa

Arnasketa abdominal paradoxikoa izatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***arnasketa artifizial***

Eta horrela, Meharra lehena iritsi zen, baina gero **arnasketa artifiziala** egin behar izan zioten izerditan itota zegoelako. Koldo Biguri

7 ***arnasketa brankial*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Muskuiluek eta gainerako itsas moluskuek **arnasketa brankiala** egiten dute. ETC-entziklopedia

8 ***arnasketa fisiologiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Bi arnasketa mota daude: **arnasketa fisiologikoa** (zeinaren bidez oxigenoa hartu eta karbono dioxidoa kanporatzen baitugu) eta arnasketa zelularra (gure zeluletan gertatu eta energia lortzen duena). ETC-zientzia, zuzenbidea

Arnasketa fisiologikoan hartutako oxigenoa ehunetako zelula guztietara iristen da, eta bertan erabiltzen da arnasketa mota horretan. ETC-entziklopedia

9 ***arnasketa lagundu*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Kasik egunero pertsona bat edo bi hiltzen ziren bertan; **arnasketa lagundua** zuten, baina inondik ere ez zeuden hiltzeko zorian. ETC-literatura, saiakera

Asteartetik asteazkenerako gauean, **arnasketa lagundua** jarri zioten, eta, ondorioz, atzo arratsaldean haren koadro klinikoa" egonkorra" zen. ETC-prentsa

Kataluniak **arnasketa lagundua** kendu dio bigarren hirukoari -halaxe iritsi baita hauteskundeetara, hila jaio ondotik-, eta gogor zigortu ditu herritar gehienen borondatearen gainetik hirukoa inposatu zutenak. ETC-prentsa

Ortuzarren iritziz, Patxi Lopez buru duen Eusko Jaurlaritza ez da 2013ko udaberrira iristeko gai, "**arnasketa lagunduarekin** baitago". ETC-prentsa

Agirrezabalaren arabera, **arnasketa lagundua** behar du lantaldeak, baina nabarmendu du makina ez dela itzali behar, lanean jarraitu behar dela. ETC-prentsa

Zenbait mugarri daude araudiaren alorrean: eutanasia, suizidio lagundua, bizi-euskarriak - **arnasketa lagundua**, elikadura artifiziala...- kentzea gaixoak edo familiak eskatuta, bizi-testamendua, eta, azkenik, medikuek errespetatu behar izatea tratamenduei uko egitea. ETC-prentsa

10 ***arnasketa zelular*** *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi)*

Arnasketa zelularra zelulan gertatzen den erreakzio biokimikoen multzoari deritzo, molekula organiko bakun batzuk (karbono hidrato gluzido, lipido eta aminoazidoak) oxidatu eta degradatzen dituena energia kimikoa lortzeko (Adenosina trifosfato ATP). ETC-entziklopedia

Hondakinak, alde batetik, **arnasketa zelularrak** sorturiko karbono dioxidoa eta ura dira, eta bestetik proteinen metabolismoak sorturiko nitrogeno-konposatuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Burdinak **arnasketa zelularrean** du funtzio nagusia, zitokromoen eta burdina-sufre proteinen osagai garrantzitsua baita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurzoruko hipoxiak eta anoxiak landare-sustraiak hondatzen dituzte, zuzenean **arnasketa zelularra** inhibituz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Berrogeita zortzi urte beranduago, 1946ean, **arnasketa zelularra** mitokondrioetan gertatzen zela frogatu zen, eta 1952. urtean mitokondrioetako bereizmen handiko lehenengo irudiak lortu ziren, mitokondrioak bi mintz desberdin dituela ondorioztatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi arnasketa mota daude: arnasketa fisiologikoa (zeinaren bidez oxigenoa hartu eta karbono dioxidoa kanporatzen baitugu) eta **arnasketa zelularra** (gure zeluletan gertatu eta energia lortzen duena). ETC-zientzia, zuzenbidea

11 ***birika arnasketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Larruazal-arnasketa animaliek burutzen duten arnasketa mota bat da, zakatz brankia-arnasketa, trakea-arnasketa eta **birika-arnasketarekin** batera. ETC-entziklopedia

12 ***sabel arnasketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Arnasketa abdominala edo **sabel-arnasketa** diafragma uzkurtuz burutzen den arnasketa da, birikak behera zabal daitezen lekua egiteko, ohiko arnasketan bular-kaxa zabaltzen denean ez bezala. ETC-entziklopedia

Kirol aerobiko arina eta yoga egiten hasi zen, eta hor ikasi zuen **sabel arnasketa** kontzientea zein garrantzitsua den. ETC-prentsa

Hiru motatako arnasketak aukeratu dituzte Yoga eta Erlajazio liburuko egileek: **Sabel-arnasketa** edo arnasketa diafragmatikoa alde batetik, sahiets aldeko arnasketa edo erdikoa bestetik, eta arnasketa klabikularra edo goikoa hirugarrenik. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 ***zelularen arnasketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

B3 bitamina Niazina (B multzoko bitamina), esate baterako, NAD-aren (**zelularen arnasketan** eta beste prozesuetan ezinbestekoa den elektroi-garraiatzailea) osagaietako bat da. ETC-entziklopedia

---

arnaslarri *iz* arnasa hartzeko larritasuna.

Denbora pixka bat itxaron behar izan zen, minutu batzuk, biriken **arnaslarriak** horni zezan hura patxadan oxidatzeko behar zen oxigenoa. Juan Garzia

Bada kezkagairik hasperen eta **arnaslarri** sakonotan; behar duzu azalpena eman. Juan Garzia

---

arnaslarritu, arnaslarri(tu), arnaslarritzen **1** du *ad* arnasa larritu.

Maggieren bila bidali ditut, etor zedila hura ere bere haitzuloa ikustera, eta, aurreikusten nuenez, han etorri da Maggie, lasterraldiak eta zirrarak **arnaslarriturik**. Juan Garzia

Bete-beterik dago, **arnaslarriturik**. Juan Garzia

2 (era burutua izenondo gisa)

Koloreen pobrezia, egituraren kilikolotasuna, sekula amaierarik asmatzen ez duten parrafo **arnaslarrituak**, azkenik gabeko itzulikan aihenkatuz. Juan Garzia

---

arnasleku *iz* arnasa hartzeko lekua.

Beti du zokoren bat gerizpean, izerdituaren **arnaslekua**. Pako Aristi

Ordea, azken gutunean diostazunaren arabera, Leyden-go Unibertsitateko irakasle egin berri zaituzte eta altxatu duzu burua, aurkitu duzu **arnaslekua**, berreskuratu duzu bizigogoa, eta zin degizut ezen nekez jaso nezakeela hori baino berri arraiagorik eta alegeragorik. Joan Mari Irigoien

---

arnasots **1** *iz* arnasaren hotsa.

Txistu egiteari utzi eta **arnasots** bat jaulki zuen ezpainak estutuz. Lopez de Arana

Arratsaldeon esan zuen logelako atetik, bi aldiz gehiago atera zuen bere **arnasots** hori. Jon Alonso

Beheko adar trinkoen artetik begiratuz, lau aulkiren hankak ikusi zituen Harryk beraien ondoko mahaitik pixka bat aldentzen, eta gero irakasleek eta ministroak esertzean egin zituzten hasperenak eta **arnasotsak** entzun zituen. Iñaki Mendiguren

Gizon haiek guztiak han, apenas ikusten zenituen, baina sentitu egiten zenituen aldamenean, haien **arnasotsa** aditzen. Monika Etxebarria

Une luze batez hiru gizonen **arnasotsa** besterik ez zen entzun gelan. Alberto Ladron Arana

Ur-emaria estuariora dakarren ur gezazko errekan edaten duten mandoen **arnasotsa**. Jon Alonso

Gehiegi tardatu zuen telefonoa hartzen, **arnasots** batean erantzun zidan, urrutitik lasterka etorri izan balitz bezala, gimnasia saio batean harrapatu nuela esan zidan. Juan Martin Elexpuru

Laster, musika **arnasotsaren** antzekoa zen, ezpainak ireki zituen, mihitxo zorrotz eta gorri bat atera, eta goxo-goxo pasatu zuen inguru guztian; haren beste ezpainekin oroitu nintzen. Juan Martin Elexpuru

Arnasotsen bidez ezagutu zintudan, eskaileretan behera zatozenean zure oin-hotsen bidez ezagutzen zaitudan bezala. Joxemari Urteaga

Segi egin nuen, beraz, are indar handiagoz, amaiera hurbilari igarriz, eta hantxe etorri zen, plop, agurearen dardarizo eta **arnasotsen** artean, eskua likindu zidan isurki lirdinga hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Arnasotsik ere ez zen entzuten ahal eta ozenagoak ziren gainerako epaigeletatik etorritako zaratak, geurean sorturikoak baino. Hasier Etxeberria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sarritan ehiza-txakurrek, lo gozoan, bat-batean hankei eragiten eta ahausi egiten dute eta sudurretatik **arnasots** bizian hasten dira, ehiziaren arrastoa aurkitu eta segika bailihoazen. Xabier Amuriza

Ikusten ez zen aho baten **arnasots** luze eta zaratatsua. Iñaki Mendiguren

Urrutian trenbideetan zamatren batek bere **arnasotsa** egiten zuen, **arnasots** alaia. Fernando Rey

Barrenean ageri ziren bi hanka handiek eta **arnasots** ozenak atzean Hagrid zegoela adierazi zien. Iñaki Mendiguren

Dementorra kaxatik irten eta isilka Harryrengana abiatu zen, **arnasots** sakon eta zaratatsuak eginez. Iñaki Mendiguren

Nire neska baten **arnasots** eszitatuak. Pako Aristi

Snow-ek **arnasots** zakar bat bota zuen. Lopez de Arana

Ondoko ohetik Ronen **arnasots** irregularra iristen zen. Iñaki Mendiguren

Nolabaiteko **arnasotsa** zen. Iñaki Mendiguren

---

arnaste *iz* arnasketa, arnas hartzea.

Arnaste hutsak erre egiten dizkit eztarriko bazterrak. Hasier Etxeberria

Gisa berean, Urtats, Bedats, Arrats eta gisako hitzak ere, haste (hasiera) eta haste (**arnaste**, bizi berritze) aztarnak biak nahasturik bezala gorde dituztela dirudi, hasitze orori, hats hitzaren zentzua erantsiz. Patziku Perurena

---

arnastezin *izond* ezin arnastuzkoa.

Eliztarren hasperen eta nigarrak gero eta ugariagoak egin ziren, eta, halako batean, giro **arnastezinak** kutsaturik eta larriak harturik, bat-batean, barrenean boz bat itzarri zitzaidan. Joan Mari Irigoien

Lehengo fabrika estua eta iluna zen, eta, ordu batzuen ostean, airea astuna bihurtzen zen barru hartan, **arnastezina**. Iban Zaldua

Instantean, hauts lodi pozoitsu batek estali zuen espazio osoa, airea **arnastezin** bihurtzeraino. Josetxo Azkona

---

arnastu, arnas(tu), arnasten **1** du *ad* arnasaren bidez airea edo kidekoak hartu edo bota.

Herminiok sekula ez zidan sexua ukitu, edo usaindu, edo **arnastu**. Jasone Osoro

Bertan eseri nahi zuen, bertako airea **arnastu**, bertako larru eta zur lakatuari usain egin. Anjel Lertxundi

Litro bat oxigeno odolera bidaltzeko, hogei bat litro aire **arnastu** behar dira. Irene Aldasoro

Hotz egiten zuen egunetan, sutontzi baten aurrean ematen zuen bizitza osoa, karbono oxidoz kargatutako airea **arnastuz** denbora guztian. Josu Zabaleta

Zuen zentzumenak edertasunari erreparatzeko sortuak dira, hura ikusteko, **arnasteko**, ahogozatzeko, aditzeko, miresteko. Patxi Zubizarreta

Parisko usainak **arnasten** zituzten, sudurra jasorik. Karlos Zabala

Eta, aire nahasi hauxe **arnasten** dugunez, gaitza bera ere batera gorputzeratu behar. Xabier Amuriza

Pentsa daiteke arrainek, airerik **arnasten** ez dutenez, dastamena baliatuko dutela usaimena baino gehiago. Irene Aldasoro

Balkoi luze batera atera zen, uztaileko gau eder hartako aire garbia **arnastera**. Karlos Zabala

Hurrengo, pasabidean behera jaitsi ginen goizeko aire freskoa **arnastera**, eta orduan ikusi genituen: soldadu zaurituak ziren, ilaran baitzebiltzan, ibilian, hankak arrastaka zeramatzatela eta kaian zehar gureganantz zetozela. Mirentxu Larrañaga

Zure usain gozoa zabaldu duzu eta **arnastu** dut, eta zure irrikaz nabil ordutik. Imanol Unzurrunzaga

Usain oro **arnasturik**, hots txikiena ere zerk sortua ote zen asmatu nahirik. Anjel Lertxundi

Banekien mundu honetan behartsua beti zanpatua, gutxietsia, biktima izaten dela, eta ez nuen nahi, inolaz ere ez, zure haurra, zure haur eder argia, behealde sakon horretan haztea, kalezulo zikinen itzalpean, etxeen atzeko estalpe baten kiratsa **arnastuz**. Eduardo Matauko

Hain usain zorrotz sarkorra du, ezen, ahal duena, berehala babesten baita hartatik; eta ezin duzu beste ezerekin nahastu, zeren bafada bat **arnastuz** gero ke zurizko laino-gandor labur bi irteten baitzaizkizu sudurretik. Juan Garzia

Isiltasunak mami astun bat hartu zuen bapatean, eta etxeetako teilatuak erortzen diren bezala erori zen gure gainera, gure gorputzak lurraren kontra zanpatu eta ordu arte **arnastutako** airea zikinduz. Bernardo Atxaga

Lehen sudurretik **arnasten** zuen, eta orain ahotik.· Eraikinaren hormetan hezeguneak zeuden, eta **arnasten** zen airea iluna eta ospela zen, bertan behera utzitako tokietan bezala. Ibon Uribarri

2 (adizlagun edo kidekoekin)

Ondoan John zeukan, ohe handi batean lo, ume baten antzo lasai-lasai **arnastuz**, buru azpian buruko tolestu bat zuelarik. Lopez de Arana

Gogoz **arnastu** nuen gaueko aire hotz garbia, Eguzki Beltzaren ganberako egurats hila uxatu nahirik. Alberto Ladron Arana

Isabelle, bere jardunaren zentzugabeaz oharturik, eseri egin zen berriz idazlearen ondoan, hiru gorputzeko sofa berdean, tabakoaren ke gozoa isilik **arnasten** zuela. Harkaitz Cano

Gaueko aire freskoa irrikaz **arnastu** genuen, barrezka. Aitor Arana

Orduan Denverrek buelta eman, eta Maitea aurrean baldin badauka, sakon **arnastuko** du haren ahoko aire gozoa. Anton Garikano

Sakonki **arnastuz**, zerbitzaria gelan sartu zen, libre zeukan eskuaz gurditxo tolesgarri bat herrestan zeramala. Lopez de Arana

Minutu batzuk ematen zituen leiho hartan, Sena aldetik zetorkion haize freskoa luze-luze **arnastuz**. Karlos Zabala

-Etxean gaudela, mutilak! -esan zuen Ninik pozez Friuliko herrietako airea bular betean **arnastuz**. Josu Zabaleta

Astiro zihoan Dahlmann, zoriontasun larriz **arnastuz** hirustaren usaina. Juan Garzia

Leihotik haize bizia sartzen zela iruditu zitzaien bertako guztiei: ez aire lurrindua, aire fresko garbi eta gaztea baizik, inongo bizidunek lehenago **arnastu** gabea. Agustin Otsoa

3 irud/hed

Beldurra **arnastu** egiten zen, aita. Alberto Ladron Arana

Eta hala **arnastu** eta sentitu nuen nik ere mementu berezi hura, hil edo bizikoa balitz bezala. Joan Mari Irigoien

Ongizate erabatekoa **arnastu** zuen han ordu batzuetan, burua nahasten zioten janari usainetatik aske. Karlos Zabala

Denda guztietan, lantegi guztietan, **arnastu** zitekeen gerraren mehatxua, hilotz kontaezinak zegoeneko beren kiratsa zabaltzen hasiak balira bezala. Alberto Ladron Arana

Mundu zaharra bizi dugu, baina **arnasten** dugun ezinegona berria da. Anjel Lertxundi

Ongi letorkizukeela zuri ere zure errealitateaz ez gehiegi fidatzea, **arnasten** duzun eta zure baitan ukitzen duzun errealitate horretaz askorik ez fidatzea. Josu Zabaleta

Nire gaztarotik ezertan aldatu ez den giro bat **arnasten** dudala iruditzen zait hemen. Josu Zabaleta

Hori izango da literatura, horixe idazlearen lan betierekoa: **arnasten** duena paperera itzultzea. Hasier Etxeberria

Sartzen zara, eta aitoren semeen etxe artean zaude; Inkisizioaren airea **arnasten** duzu; karrikaren beste muturrean ikusten duzu zutik Felipe II.aren mamu zurbila. Koldo Izagirre

Egun horretan behinik behin Madrilgo kaleetan euskoen arteko batasuna **arnastu** da. Edorta Jimenez

4 ***arnasteko zailtasun***

Arazoa ez da gai organikoek zenbait gaixotasun sor ditzaketela, arazoa **arnasteko zailtasunak** dituztenek gaixotzeko arriskua dutela da. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

airea arnastu (4); **arnastu gabe** (4); **arnastu nuen** (6); **arnastu zuen** (5); **arnastu zuten** (4); **gasa arnastu** (3); **kea arnastu** (7); **usaina arnastu** (3)
kea arnasteagatik (7)
arnasteari uzten badio (3); **utzi dio arnasteari** (3)
arnasten ari (5); **arnasten da** (5); **arnasten den** (6); **arnasten du** (3); **arnasten dugu** (3); **arnasten dugun** (11); **arnasten dute** (6); **arnasten zuen** (7); **usaina arnasten** (3)
arnastuta hil ziren (6); **gasa arnastuta** (3); **karbono monoxidoa arnastuta** (9); **monoxidoa arnastuta hil** (7)

arnastutako karbono (3)
arnastuz gero (4)

---

arnasustu, arnasusten du *ad* arnasa guztia bota.

Eta han berriz lotu ziren besarka, batak bestearen birikak **arnasustu** gura izan balitu legez, hain izan zen trinkoa euren bategitea. Xabier Montoia

---

arnegamendu *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* arnegatzea.

Condék egina zuen bere **arnegamendua**, eta Condérekin batean, Miossensek eta Armagnac-ek ere bai, Frantziako gorte guztiaren aitzinean. ETC-literatura, saiakera

---

arnegarazi, arnegaraz, arnegarazten *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* du *ad* arnegatzera behartu.

Joan den gizaldiaren hasieran ere bisitari izan ziren: San Mikel katedralean irakurri nuenez, natibo gazte bat -ortodoxoen martiri saindua orain- eriak moztuz ankerki torturatu eta odolustuta hil zuten gure herrikideek, bere fedeaz **arnegarazi** nahian. ETC-prentsa

---

arnegari *iz* arnegatzen duen pertsona.

Joyce: beste dublindar **arnegari** bat. Berria - Kultura

Gero tsarrari telegrafiatu zion traidorea segada batean eroria zela, eta hilko ahal ziren **arnegari** guztiak! Pello Lizarralde

Esaten niona entzun beharrean Mikel Strogoff gainera etorri zitzaidan **arnegaria** nintzelakoan, oihu egin zidan tsarrari ezin zaiola ziria sartu eta Ivan Ogareffek pagatu egin behar zuela. Pello Lizarralde

Pentsatzen zuen horrekin istilu-zalea bihurtuko zela, **arnegaria** ... baita mozkorra ere, zorrik ez zeukalako, eta hala gertatu zen hein batean. Anton Garikano

Behin batean Mikel Strogoff ganbaran zegoen tsarrari telegrafiatzen esateko Ivan Ogareff **arnegariari** berak emango ziola astindua. Pello Lizarralde

---

arnegat *izond* arnegatua.

Ardi beltza, bertze ardiek begietan daukatena, baztertua, zokoratua, izurritea balu bezala, **arnegata**, iluna bertze guziak hain xuri direlarik, halere ez ardi galdua. Herria

Arneguka ere ibiliak **arnegataren** bizioa eta gaztigua hartze du, eta laguna laidoztatu duenak laidoztatzailearena, eta ez ditu bakarrik anitz xede gaitzengatik anitz gaztigu mota hartze, baina behar dira bestalde konfesatu delako helburu gaitzak, eta kontuan hartu aldeak, irabazteko horrela erabaki guti batzuekin bertute anitz eta haien merezimenduak eta saihesteko [...] Piarres Xarriton

---

arnegatu, arnega(tu) arnegatzen **1** du *ad* Jainkoari edo erlijioari uko egin.

Laster etorriko da belaunaldi berria, ez bakarrik sinesgarritasunik ez zuen eliza baina eliza oro **arnegatuko** duen belaunaldia: "Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu! "Zeruko Argia-n idatziko duen Rikardo Arregiren, eta Jon Mirande, Gabriel Aresti, Federiko Krutwig, Mikel Lasa edo Txillardegiren belaunaldia. Piarres Xarriton

Errepresio sexuala salatu eta erlijioaz **arnegatu** noiz eta XVIII. mendean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 (era burutua izenondo gisa)

Geroxeago jakin zuen apez **arnegatua** eta Lozère departamenduko diputatua zela. Elena Touyarou

Pinet eta Cavaignac jaunak ziren Uztaritze eskualdeko arduradunak; Monestier apez ohi **arnegatuak** aldiz, Maule eta Basses-Pyrénées departamenduaren gaineratikoa zuen beregain eta, azkenik, Dartigoyete arduratzen zen Landetaz eta inguruko xokoez. Elena Touyarou

Berberiako kostan, Ameriketatik zetozen ontziei eraso eta haiek zeramatzaten ondasunak lapurtzen saiatzen ziren musulman, kristau **arnegatu**, kortsario interesatu eta pirata diruzale guztiei babeslekua eta munduko edaririk hoberena ematen ahalegindu zen tabernaria. J.M. Olaizola "Txiliku"

3 (era burutua izen gisa)

Hil ezazue **arnegatu** hori! Agustin Otsoa

Gauza ezaguna da zenbateraino izaten diren sutsu eta gogorrak neofitoak eta **arnegatuak**, dela bere fede aurkitu berria defenditzeko, dela bere uste zaharrak gaitzesteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Zurrumurruek, aitzitik, **arnegatu** bat zela esaten zuten, Sauronen agintaldian zehar Erdialdeko Lurraldean bizitzen jarritako Numenortar Beltzen ondorengoa. Agustin Otsoa

"Tira", esan du berekiko, **"arnegatu** eta neokonbertsoen entusiasmoa...". Jokin Muñoz

4 irud/hed

Medikuntza naturistaz **arnegatu** ondoxetik, haren zakua botika mordoskaren altxatokia zen, buruko minak eta txaketenak estakuru. Aingeru Epaltza

Lehenbizikorik Artzapezpikuak **arnegatuko** ditu hamasei perpaus heretiko, Lutherren eta heretiko berrien ezagutuenetarik, haiengatik bere idazkiek, heresia kutsuko solasek eta beste nola nahikoek, egina baitzuten biziki susmagarri. Piarres Xarriton

Begira, alarde superatu horren ordez, antola ezazue, nafar **arnegatu** horiek, gerra operistiko bat. Patziku Perurena

5 erabat gogaitu; amorratzen jarri. ik **ernegatu**.

Besteen behar direnak, besteekin laketzen, denbora betetzen, atsedeten direnak eta bakardadeak hormategi ikaragarri batetik igo beharrak edo basamortua igarotzeak bezala unatzen, akitzen, deusezten dituenak, eta, alderantziz, besteek aspertzen, **arnegatzen**, gogaitzen, adikatzen dituztenak, eta bakardadeak aldiz, lasaitzen dituenak, beren askatasunean eta beren pentsamenduaren fantasian soseguz bainatzen dituenak. Josu Zabaleta

Iruditzen zitzaidan orduraino nire bihotzaz **arnegatuta** bizi izan nintzela baina maitasuna bihotzeratu zitzaidan momentutik, sumatu nuen, ustez behintzat, ene bihotza han zela; arnegu, erdeinu eta bortxa guztiak gora behera ere, han zela bihotza. Matías Múgica

" pentsatu duk, **arnegatuta**. Jokin Muñoz

Eta orduan inoiz baino **arnegatuago** jarri zen Emmanuel. Joan Mari Irigoien

---

arnegatzaile *iz* arnegatzen duen pertsona.

Hirurogei bat lagun, militarrak, iheslarien ahaideak, apez **arnegatzaileak**, eta beren leialtasun iraultzailea aski sutsuki agertu ez zuten beste zenbait, hiltzera kondenatuak eta berehala erailak izan ziren. Elena Touyarou

---

arnegatze **1** *iz arnegatu* Jainkoari edo erlijioari uko egitea.

Arnegatzea: hitza eman eta jatea, fedeari uko egitea. Xipri Arbelbide

2 irud/hed

Hau guztia onartzea Konstituzioaren Estatua txikitzea litzateke, Trantsizioaren izpirituari uko egitea, espainiar gisa dugun identitatea **arnegatzea**, biktimen sakrifizioa alferrikakoa izan dela onartzea, haien memoriari traizio egitea, eta bizirik daudenen erresistentzia antzua eta absurdua bihurtzea Berria - Harian

---

arnegitar *izlag/izond/iz* Arnegikoa, Arnegiri dagokiona; Arnegiko biztanlea.

Salt-Lake City ezagutuan, **Arnegitar** Jean-Baptiste Gaztambiden etxean bildu da berrogoi bat euskaldun. Herria

Goiz-aratsetako otoitz hok uste dut Ipar aldetik jinak ziren, zeren gure amaren ama edo gure amatxi sortzez **Arnegitarra** zenaz gain, eta orai Ipar aldeko herri batzutan oroitzen direlakotz otoitz horietaz. Herria

Otsailean bertze multxo bat da harat buruz airatuko: Arño Gastambide eta Maite Duhalde aihertarrak, Regine eta Iker Elosegi hazpandarrak, eta Christiane Ainciburu **arnegitarra**. Herria

Agorrilaren 16an ezkontzako sakramendua errezebitu dute Arnegiko elizan Argitxu Camino **Arnegitarrak** eta Extebe Ouret Zaroarrak. Herria

Arnegitarrak arras hunkituak ziren beren erretore maiteari egin ohoreaz, hain zuen ongi merezitua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Arnegitarrek bereziki harateko izan baititu igande gehienak, arras estimatzen zuten beren apez goiztiar jarraiki zintzoa. Herria

Baina, mende laurden bat berantago, jendetzea azkarki goititu zitzaion eta, 1636an, **arnegitarrek** beren eliza eraiki zuten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

arnegu 1 *iz* madarikazioa, biraoa.

Maitasuna bihotzeratu zitzaidan momentutik, sumatu nuen, ustez behintzat, ene bihotza han zela; **arnegu**, erdeinu eta bortxa guztiak gora behera ere, han zela bihotza. Matías Múgica

Arnegu bat botatzen du, irribarre egiten dut eta nik ere alde egiten dut. Josu Zabaleta

Ordea, herritik nehoiz ez mugituek ez zioten bizia errazten, dena irain, eldarnio eta **arnegu** erabiltzen baitzuten, aberastu gabe agian itzuli zenaren plantan. Itxaro Borda

Bortz gizon haietarik batek ozen hitz egiten zuen eta zalantzarik ez zegoen ezen haserre zegoela, egozten zituen **arneguengatik** eta haren juramentuengatik, batean Kristoren zauriak aipatzen zituela eta bertzean Avilako santarenak. Joan Mari Irigoien

Ez dakit eme deabru horren kontra egin nituen **arneguak** entzunak izan ziren, baina etxeratu ginelarik ohean kausitu genuen. Jon Muñoz

Baina betikoa, askoren **arnegurako**: jatorrizko hizkuntza hura gure euskaran kontserbatzen dela garbien. Berria - Kultura

2 *arnegu egin*

Aski adoretsuki heriotzaren zain nengoen egun haietan, hain zuzen, ororen gura zorrotz bat sumatzen nuen sastaka neure baitan, imajina zitekeen giza esperientzia ororena, eta **arnegu egiten** nion aurreko neure bizialdiari, hartaz gutxi eta gaizki gozatu nuela iruditzen baitzitzaidan. Juan Garzia

---

arneguka *adlag* arnegu eginez, biraoka.

Errotariak **arneguka** jarraitu zuen. Josu Zabaleta

Biraoka ari dira, madarikazioka, **arneguka**, txiza eta kaka egiten dute elkarren gainean, lizunak dira, libertinoak, homosexualak, intzestugileak, eta sodomizatu, jo, zauritu, hil egiten dute. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Erakusleihoetako tentazioaren aurrean, aldiro amor ematen baitzuen, hasperenka, ahopetik **arneguka**, eta begi-ertzetik niri begiraturik, nire epairen baten beldur bailegoen edo konplizitateren bat espero bailuen nigandik. Juan Garzia

Triste nengoen eta arrai nengoen, baina kolerak eta hirak hartua nengoen bere batez, neure onetik aterea guztiz, **arneguka** eta juramentuka hasteko gogoz, nahiz eta ez zen hura ene ohitura, ez ene usantza. Joan Mari Irigoien

---

arnes *iz* gorputzaren euskarri gisa erabiltzen den uhaleria.

Arnesak, kaskoak, sareak eta aldamioak asmatu dira, baina kalte ergonomikoak edo psikosozialak eragiten dituzten lanbideetarako ez dago ezer, eta horiek dira emakumeek betetzen dituzten lanbideetan izaten direnak. Berria - Euskal Herria

Saiotako batean, Gelert izeneko bere zakurrari **arnes** bat lotu zion Coslettek kazetari baten aurrean. Berria - Mundua

Zakurra **arnes** horretan gelignitazko lehergailuak eramateko trebatua zuela esan zuen FWAko kideak. Berria - Mundua

Nahiko behean zegoen eguzkiak argitzen zuen, eta **arnesak** distiraka ari ziren urre gorriaren indarrarekin. Agustin Otsoa

---

arnika *iz* elkartuen familiako belar landarea, lore-horia, usain bortitzekoa *(Arnica montana).*

Arnika premia ederra izango dut, bada, aurki. Josu Zabaleta

Arnika txaplataz zaintzen zenizkidan, inondik ere. Bulegoak **arnika** bezalako zerbaiten usaina zuen. Josu Zabaleta

---

arno 1 *iz batez ere ipar* ardoa.

Biperrada, zikiroa, gasna, deserta, **arnoa**, kafea, ondokoa. Herria

Agerrek bertze tragoxka bat hartu du Jeannettek ekarritako goporretik eta ahoan erabili du, irentsi gabe, Borgoñako **arnoa**. Aingeru Epaltza

Hegoaldean, usaia da **arnoa** edatea, txikiteoa eginez taldeetan. Menane Oxandabaratz

Aagar erreari ekin aitzin, Bordeleko **arnoa** ezpainetaratu zuen, plazer osoz, Paradisuko atarian balego bezala. Joan Mari Irigoien

Afari arina eskatu zuen gonbidatuak, eta **arnoa** ere neurriz edan zuen. Joan Mari Irigoien

-Arnoa, ausarki -eskatu zuen ikustaldiaren hondarrean. Aingeru Epaltza

Han, kopa bat **arno** edateko ohitura izaiten genuen. Joan Mari Irigoien

Lurrezko ontzi bat **arno** eskuan, erran zigun: [...]. Joan Mari Irigoien

Beste baso bat **arno** edan nuen. Daniel Landart

Nornahirekin gelditzen da, hala laborari nola burges, zergez, uztaz nahiz familiaz solas gozoan ari bitartean, basokada bat **arno** zintzurreratzeko prest beti. Aingeru Epaltza

Bi pitxer ur eta beste bi **arno** ipini zizkien aitzinean. Elena Touyarou

Bertze pitxer bat **arno** eta bi kopa eskuan harturik, goiko solairurat bakartu ginen. Joan Mari Irigoien

Hainbat gopor **arno** hustu genituen lehenago. Aingeru Epaltza

Gizonak baso **arnoa** eman zion eta urrats zenbaitez gibelatu zen. Elena Touyarou

Eta ortzegun saindu aratsean, kopa **arnoz** beterik apostolueri eskaini zioten erranez: [...]. Herria

Konta niezazukeen, konparazione, **arnoan** zopatzen zen hordiaren kasua, **arnoz** bete tina batean ito zenarena. edan genuen yarakia -edo juka deritzan tuberkuluaren **arnoa**, hobeki uler diezadazun, jaun André-, eta bazkaltzen hasi ginen. Joan Mari Irigoien

Ortzantza apirileko, **arnoa** barrikarako. Pello Zabala

2 (izenondoekin eta izenlagunekin)

Burdin haga luze baten bidez egiten zen tinkatze hori eta **arno** berria, gozo gozoa, jausten zen aska batetara, soto azkar baten mentura urte guziko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Jatean biziki maite dut **arno** ona. Gure larunbat goizetako merkatua pizkortuz doa, hor bada **arno** gozoa eta edari frango. Menane Oxandabaratz

Eta orduan bertze sentimendu bat errotu zitzaidan, **arno** gozoaren galtzetik sortzen den ozpinaren zaporea zuena, minkorra eta garratza. Joan Mari Irigoien

Eta arauak honelakoak izanik, nolaz baso txar bat **arno** beltzez kontentatu? Piarres Aintziart

Burgoñako **arno** famatuenetarik bat egiten zuen Mercurey. Marzel Etxehandi

Edergintzako asko eta asko gauza salgai besteak beste, bainan ere **arno** buxundatu frango eta gure etxetako ekoizpen batzu. Herria

Norberak pentsa dezake lasaiki itzuliko zela Getaria aldera, txakoli **arno** xuriz gozatuz, bere balentriaren ohoretan bizi osoa iragaiteko. Ramuntxo Etxeberri

Ipar-Ameriketan, frantses **arnoen** salmentak ttipitu dira jaz %32-ez. Herria

Aspaldiko urtetan lantzen dituzte mahastiak (20 bat hektara), fama handiko **arnoa** ekoiztuz (100.000 pinta urtean). Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bordeleko alde hortan bereziki, mahastizain eta **arno** saltzaleak kopeta zimur dabiltza. Bi **arno** motak, etxekoa eta Erriberakoa, ez ziren ber gradokoak. Herria

Jendeak ez du hortik mugitzerik aurten, ikastolek hor berean eskainiko baititutzte taloak, sagarnoa edo **arno** xorta batekin. Herria

Xingar zati honek merezi bailuke haatik **arno** xorta bat, apur bat bero nadin bederen lanbro honen erdian. Piarres Aintziart

Ikusi ditugu telebixtan **arno** botoilak husten karrika arroiletan. Herria

Gerriz **arno** zahagi betea ematen zuen; aurpegiz, kandela zimurtu itzalixea. Oraingoan ez zen musika-soinurik jo ezta **arno** upelik hustu ere, aingeru beltza berriz ere Garrüzera erakartzeko beldurrez. Aingeru Epaltza

Solasari lotu baino lehen, osaba Joanikotek kopa ezpainetaratu eta **arno** kurka bat egin zuen. Joan Mari Irigoien

Isilune labur baten ondoren, basoan zituen **arno** hondarrei azken kurka emaiten ziela, akabatu zuen-: [...]. Joan Mari Irigoien

Mainuaren ondotik, **arno** bero xorta bat edan dute itsasoan sartu direnek. Herria

Hiru egunez eginen dira bisita, **arno** jastatze, apairu... Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nahi baita entzuleek mahain batzuen inguruan jarririk entzunen dutela ikusgarria, artetik herritarrek eskaini bixkotxak jastatuz, edo berdin sagar **arno** on bat hurrupatuz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arno bat** (6); **arno botoila** (5); **arno buxundatu** (6); **arno edo sagarno** (3); **arno gutiago** (4); **arno mota** (3); **arno on bat** (3); **arno ona edaten** (3); **arno onak ez** (3); **arno onaren** (3); **arno sagarno** (3); **arno xorta bat** (6); **arno xuri** (3); **baso bat arno** (6); **berdin sagar arno** (4); **bi arno** (3); **bordeleko arno** (3); **edo arno** (3); **irulegiko arno** (10); **ontzi bat arno** (3); **sagar arno on** (3)
>
> **arnoa ezpainetaratu** (3); **baso arnoa** (3); **ere arnoa** (3); **irulegiko arnoa** (4); **ogia eta arnoa** (3)
>
> **arnoak ere** (3); **arnoak tira gutiago** (4)
>
> **arnorik edaten** (3)

---

arnogile *iz ipar* ardogilea.

Goizean Biharko Lurraren Elkarteko teknikariekin eta Euskal Herriko **Arnogileak** elkartearekin bildu zen Menta izeneko eremuan. Berria - Ekonomia

---

arnogintza *iz ipar* ardogintza.

Arnogintza indar handia duen sektorea da Frantzian milioi erdi lagun enplegatzen ditu, eta neurri horretakoa da krisia ere. Berria - Harian

Arnogintzak bizi krisiari aurre egiteko, politika berri baten aldeko neurriak hartzea erabaki du Frantziako Mahastizain Independenteen Sindikatuak. Berria - Harian

Arnogintzako sotoak lilluratu ditu ikusliarrak heien artean bereziki hemen gaindi iragan diren St Emilion eta Perpignan inguruko mahasti zainak. Herria

---

arnoketa *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) adlag* arnoa erosten. ik **ardoketan**.

Larunbat goiz batez, katalintzar bat nunbaitik muntaturik -hogei pintakoa, itzulia bali egiteko gisan- Mattin zapataina **arnoketa** abiatu zen. ETC-prentsa

Hor ere gauzak aldatu: ez dute gehiago etxez-etxe ibiltzerik, ez ostalerek **arnoketa**, ez-eta laborariek saltzerat; denetan sartu baita komertzioa bere aiseriak eta soberakinak eskainiz ororí, bakotxak hauta dezan. ETC-literatura, saiakera

Seme zaharrenak gaztetzen hasi zirelarik, beraien aldi zen gero **arnoketa** ibiltzea, gehienetan Urepele Kintoko Pallaenea bentara joanez... ETC-literatura, saiakera

---

arnotegi *iz ipar* ardotegia.

Ostatu eta **arnotegi** bat kudeatzen zuten. Herria

Beren fruitu eta baratzekariekin -gasnategia-**arnotegia**-arraintegia eta jateko gauzez kanpo marrazki eta abar. Herria

---

arnotu, ardo(tu), ardotzen da *ad ipar* ardotu.

Ebanjeliotik ari direla erakutsi nahiz denak ere Kanako ezteiak gogoan, ura **arnotu** baitzen han. Herria

---

arnozale *izond ipar* ardozalea.

Arnozalea izaki. Aingeru Epaltza

---

aro[1] *(ETCn **53.134** agerraldi)* **1** *iz* garaia, denbora; Historiaurrean bereizten diren garaietako bakoitza; historia-denbora banatzen den lau zatietako bakoitza. ik **aldi**.

Munduaren neurriak oinez ibiltzeak markatzen zituen **aroak** dituzula amets. Hasier Etxeberria

Batean jendeak entzunez, bestean liburuetan, ez ote litezke bere biziko bi **aro**, ahozkoa misionest gazte zelarik, liburuak geroago... Xipri Arbelbide

Hala, bada, **aro** hau bizitzea egokitu zaien biologoak, nerau barne, beharturik egon dira materialez aldatzera, are behin baino gehiagotan. Juan Garzia

Ongi jakingo duzunez, hala espero dut behintzat, Mr Worthing, idealen **aroan** bizi gara. Antton Olano

Ez dut ahalegin handiegirik egin behar **aro** bi horiek berreskuratzeko eta oso eroso sentitzen naiz, gainera, garai haietaz hitz egiten. Ana Urkiza

Ondorengoak, ondorengo lasaitasunak, maitasunaren beste **aro** horrek ez du izenik. Lourdes Oñederra

Eta horrek bultzatu ditu gizarteak beren kalendarioak ere urtearen **aroak** kontuan izanik antolatzera. Pello Salaburu

Aro honetan, ongarria prestatzen arituko dira, eta hazia ere ereiteko prestatzen. Juan Kruz Igerabide

Alderdiok baino sakonagoan, haatik, bi garai edo bi **aro** bezala ikusten ditu Victor Hugok Euskal Herrian elkarrekin batera bizitzen, elkar ukatuz. Koldo Izagirre

Beraz orduantxe ailegatzen ari zen bake unibertsalaren eta sozialismoaren **aroa**. Fernando Rey

Baina ez -arrazoitu nuen- beste **aro** bateko metodoak dira horiek. Joxan Elosegi

Baldintzatu eta beharbada, baldintzatuko ere, kodearen **aroa** ez baita agortu, aurkakoa aspalditik aldarrikatu bada ere1. Andres Urrutia

Ez duk **aro** honetako gainerako gizakiak bezalakoa, Pippin, eta halabeharraren joko ararorен batengatik, bere arbasoak edozein izanda ere, Mendernesseko odola ia bere horretan zabilkiok zainetan barrena, baita beste semeari ere, Faramirri. Agustin Otsoa

Arrazoiaren **arorik** ezagutu gabe haurtzarotik zahartzarora iraganen nintzen, neronen tiriatzeko eta segurtatzeko ahala zeukan zulo beltz intergalaktikoa hedatzen zitzaidala bien artean. Itxaro Borda

Literaturaren zeregina, gaur, ezin liteke beste bat izan: gizartearen oroimena berreskuratzea, jendearen hizketa-modua jasotzea, zarataren lupetzatik **aro** baten bizkarrezurra osatzen duten ezaugarriak eguzki berora ateratzea, orri dirdaitsuen zuritasunera. Pako Aristi

Lauki bati buruz hitzegin duzu zuk, eta nik uste hobe litzatekeela zirkulu bati buruz hitzegitea, zeren eta errealitatean, bai behintzat nekazari giroan, ez baitira lau **aro**, lau atal horiek bakarrik errepikatzen, baizik eta festa eta santuekin seinalatuta egoten den atal mordoxka bat. Bernardo Atxaga

Mota guzietako **aroak** jasan behar zituzten egun osoan zehar, pausan bezala lanean ere. Eneko Bidegain

Eta zokorik ilunenean jesarri nintzen, harrotasun berri batek egiten ninduela bizardun: nire bizitzak, handik harat, bi **aro** zeuzkan. Koldo Izagirre

Pentsamendu galaraziaren **aro** honetan, deus galdetzeko gogoa egin baino lehen erantzun mordo bat emanez eta atergabeko informazio jasa hazkorrez lortzen da muinak asetzea, zopatzea eta ezertarako gauza ez direla uztea. Iñaki Segurola

Baina, Makaoren urrezko **aroa** estali zen pixkanaka. Ramuntxo Etxeberri

Atzo, gaur eta bihar: hiru **aro** desberdin, baina hirurak ongi loturik, ezin baita ulertu hiruretako bat ere, besteak kenduta. Joan Mari Irigoien

Haurtzaro, izø Giza bizitzako **aro** bat, pix-oihaletako haurraren idioziaren eta gaztaroko erotasunaren tartekoa. Xabier Olarra

Nahiz eta Erromako epikureismoaren historia ez den hor amaitzen, areago hasten baizik, eta, nahiz eta beharbada enperadore paganoen **aro** bat eta kristauen beste bat bereiztu beharko liratekeen, guk ez diogu hitzaurre hau gaindituko lukeen historia horri jarraituko. Xabier Amuriza

Agustin deuna tradizio filosofiko-teologiko asko biltzen dituen **aro** baten eledun dugu eta, aldi berean, gure Historiako inperiorik esanguratsuenaren, Erromako Inperioaren, gainbeheraren testigu paregabea. Imanol Unzurrunzaga

Gure **aro** hau, Miss Primek askotan esaten duen bezala, axolagabea da erabat. Antton Olano

Urtea gau zurietan eta egun ilun zurietan - agertu ala agertu ez -, urtea **aro** bitan banantzen duen eguzkia. Edorta Jimenez

Alabaina maitasuna deitu zitekeen larru lardaskatze sail luze eta aspergarri horretan galtzeko ez zen **aro**. Itxaro Borda

Rousseauk bi **aro** bereizten ditu: adoleszentziaren aurrekoa eta ondorengoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beste **aro** batekoa duk. Antton Olano

Bazirudien **aro** oso bat igaroa zela, Charliek zerbait esan zuenerako. Mirentxu Larrañaga

2 (izenondoekin)

Garai zoragarria zuan, **aro** magiko bat. Xabier Olarra

Skidelsky biografoaren hitzetan "**Aro** keynesianoak sortu zituen itxaropen haiek berek ezeztatu zuten Keynesen iraultzaren ahalmena (--...). Iñaki Heras

Bazuen zerbait misteriotsua, eta, kontatzen ari garen istorio hau ezjakintasunaren **aro** ilunean gertatua balitz, aztia zela aitortzen ausartuko ginateke. Jose Morales

Aro aipagarria izan zen Demkë idazlearen bizitzan Kultur sailean egin zuen hura, Zulo sailburuaren alboan. Pablo Sastre

Eta ogiaren pare-parera etorrita, ia ordu oroko: "ogiberri" nola, halaxe aroaren ordu oroko jakingura beti **aro** berriarena ere. Pello Zabala

Gerra Zibila amaitu eta Bigarren Mundu Gerra aurrera zihoan heinean, **aro** berria hasi zen iheslarientzat. Jokin Urain

Horretarako, sarreragileei **aro** historikoen ardatz filosofikoak koherenteki azaltzeko eskatu diegu. Askoren artean

Ziklikoak dira alderdiok: munduko bazter urrunetako, antzinako **aro** urrunetako gertakariak errepikatu edo konbinatzen dituztela dirudi. Juan Garzia

Gogoetaren ahalegina behar du, hedatuko bada, eta hari atxikiz gero **aro** teknikoaren muinera daroan eta berau zeharkatzen duen bidea apaila genezake. Markos Zapiain

Ene galde antzuak ezabatu zituen Kultura ministroaren mintzaldi kartsuak: euskara hizkuntza ikaragarria izana zen, paleolitiko **aro** monolitiko hieratiko garaitik hona, galera erraldoia zen munduarentzat [...]. Itxaro Borda

Eta jakin nuen, sentitu nuen, errítual hura gizakiak kobazuloetan bizi ziren garaitik zetorrela, eguzkia eta ilargia jainkoak ziren **aro** ilunetatik... eta gureganaino heldu zela, Denboraren eta Ahanzturaren amildegiak zeharkatuta. Alberto Ladron Arana

Haimaika urtetan burutu zen **aro** uros hura. Piarres Aintziart

Debeku hura errespetatu zuen amak, baita alargun egin zuen **aro** laburrean ere. Joxan Elosegi

'Hori aspaldian gertatu zen,' dio Andonik, 'hogeita zazpi **aro** geologiko suntsitzaile pasatu dira harrezkeroøø.' Joseba Sarrionandia

Despedida horretan, haien begiradan, deskubritu nuen gure bidaia noiz hasi zen, herri baten historian **aro** berri bat noiz hasten den erabakitzeko orduan erabili beharreko zehaztasun berberarekin. Pako Aristi

Jada **aro** inperialetik zetorren destainazko tradizio hori, karlistadekin kanpaina sumin masiboa bilakatu da ("un inmenso clamoreo de odio" altxatu da Espainia osoan, zioen Unamunok) Euskal Herriaren eta euskaldunen aurka: "xxxx". Joxe Azurmendi

Aro handi batzuk belarritako. Unai Iturriaga

Aitzineko asteetan eskualde hura zapuztu zuten euri eta elurrek atsedenaldi bat hartu zutela zirudien, baina, herriko zaharrenen arabera, **aro** triste horrek uda mineraino iraun zezakeen. Elena Touyarou

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aho-aroan finkatua nago, aho-**aro** kanibal batean noski, ahoratze-modu guzti-guztiak atsegin baititut. Karlos Zabala

Bada esan duenik koito modu hori haurtzaroko garapen psikosexualeko uzki **aroan** geratu direnen obsesio patologikoa dela. Luis Elberdin

Ez al gaude orain gariaren uzta-**aroan**? Dei eginen diot Jaunari, eta berak trumoiak eta euria bidaliko dizkigu. Horrela ikusi eta jakingo duzue zeinen gaiztakeria handia egin duzuen Jaunaren aitzinean, zeuentzat erregea eskatuz. Elizen arteko biblia

Badago liburu bat El complot de Matusalén izenekoa, eta, bertan aditzera ematen den bezala, 68ko belaunaldia jubilatze **arora** heltzen ari gara eta era masibo batean, gainera. Ana Urkiza

Zazpi haurreko familiakoak gara, hippy **aroan** Euskal Herrian anitz entzuten eta kantatzen zen abestiaren antzekoa. Itxaro Borda

Herriak aspaldi ahaztua zuen konkista-**aro** hura. Xabier Aranburu

Berrogei urte pasatu dira Quousque tandem argitaratu zenetik, eta beste erdioriotar batek, Jon Sarasuak, bizi dugun hau golde-**aro** dugula gogorazi berri digu, herri-minez urratutako aldarri ezinago ederrean. Joxerra Garzia

Amaitua genuen fraide **aroa**. Joxerra Garzia

Orobat dio Lekuonak artzain **aroan** sortua dela bertsolaritza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Txinparta eta eltxaferu **aroa**. Jose Angel Irigaray

Nire zoria madarikatu nuen, gau **aroa** izaten zenetan ontziko gizon gehienek nahiago izaten baitzuten bizkar nagusian lo egin han barruan baino. Edorta Jimenez

Ezjakintasun **aroko** mendeak eurak ere, moral publikoa moral pribatuari men egitera behartutako garaiak, jakinduria eta esperientzia-iturri dira mende argituentzat. Juan Martin Elexpuru

Etxean ibaiaren hurbiltasunak eragindako sukarren bat zegoela pentsatu nuen, bada, eta, ehiza **aro** bete-betean bageunden ere, bizpahiru hilabetetarako handik alde egitekoa nintzela, ustekabean ohartutako gertaera guztiz bitxi batek halako aurkikuntza sail harrigarri, beldurgarria ekarri zidan, non hantxe geratu bainintzen. Josu Zabaleta

4 ***Antzinako Brontze Aro*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Kronologikoki, tokia, Castelluccioko faziesen barnean dago (Siziliako **antzinako Brontze Aroa**), eta sei eremutan banatzen da. ETC-entziklopedia

Monte Manganello kokagune protohistoriko bat da, non txabola herrixka bat zegoen **Antzinako Brontze Arotik** Erdi Brontze Arora arte. Piazza Armerina udal eremuan dago, hiritik 10 kilometro ingurura. ETC-entziklopedia

Antzinako Brontze-Aroa : Brontze-Aroaren lehen zatia K.a. 3300-2100. urte bitartean izan zen, baina ez leku guztietan batera. ETC-entziklopedia

5 *Aro Arkaiko* *(corpusean ez dago; ETCn **66** agerraldi)*

Haien hasierako hiri gutxik iraun zuten **Aro Arkaikoaz** geroztik (edo bakar batek ere ez). ETC-literatura, saiakera

Aro Arkaikoan , zehazki VI. mendean lortu zen filosofiaren autonomizazio-prozesua aztertzea -autonomizazio hori erakusten duten edukiak aurkeztea baino gehiago, agian-. ETC-literatura, saiakera

Aro Lausoari amaiera emanik, **Aro Arkaikoan** Helade berriro sartuko zen historian: aurrerapen ugari egin ziren, gehienak nabigazioarekin, komertzioarekin eta kolonizazioak ekarri zuen polis berriaren egiturarekin harremanean. ETC-literatura, saiakera

Errepublikaren aurreko garaiko aztarnak nahiko urriak dira Erroman, eta, horregatik, "balio handia dute, egoera honetan **aro arkaikoko** aztarnak Erromako erdigunean aurkitzen ditugun lehen aldia delako". ETC-prentsa

Aro arkaiko eta klasikoko greziarrek ez zuten ezagutzen bake-egoera, ezta hitza bera ere; haientzat, borroka-etenaldiak baino ez zeuden, iraupen jakin bateko meniak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antzinako Greziako erlijioaren erritu eta sinismen nagusiak **aro arkaikoan** (K.a. VIII. mende K.a. VIII. eta K.a. VI. mende K.a. VI. mendeen artean) ezarri ziren. ETC-entziklopedia

Egurra **aro arkaikoan** erabili zen batez ere, "xoanak" egiteko (erlijio aurre-olinpikoaren adierazgarri ziren figura landugabeak). ETC-entziklopedia

6 *Aro Aurredinastiko* *(corpusean ez dago; ETCn **54** agerraldi)*

Abidosen aurkitu dira Egiptoko **Aro Aurredinastikoko** agintarien aztarnak, tenpluak eta hilobiak. ETC-entziklopedia

Egiptoko **aro aurredinastikoan** , bi erresuma independente agertu ziren: Egipto Garaia eta Egipto Beherea. ETC-entziklopedia

Egiptoko **Aro aurredinastikoa** izenarekin bi lurren bateraketa gertatu aurreko aro aurrehistoriko eta historikoa ezagutzen da. Neolito garaikoa da, eta egiptoar estatuaren eraketa prozesua erakusten du. ETC-entziklopedia

Uas zetruaren erabilera, beharbada, Egiptoko **aro aurredinastikoan** hasi zen, ganadua gidatzeko bastoi bat bezala, arrazoiren batengatik, boterea eta indarrarekin lotutako elementu bat sinbolizatzera pasa zena. ETC-entziklopedia

7 *Aro Aurreklasiko* *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

Aro Aurreklasikoa K.a. 2500etik 200eraino hedatzen den garaia da Amerikako historian, oro har lehen Erdialdeko Amerikako zeramika egin izanaren data probabletik hasi eta Cuicuilcoren erorketa amaitu eta Teotihuacan loratzen hasten den arte. ETC-entziklopedia

Hiri hau **Aro Aurreklasikoan** dagoeneko existitzen zen. VI. mende hasieran, Calakmul eskualde-indar handia zen dagoeneko. ETC-entziklopedia

Hemen hizketan ari garen artean, baten bat, Pas de Basque dantzan egiten ari da munduko lekuren batean", eta "mundu osoari" erakutsi nahi dio Urbeltzek pauso hor **aro aurreklasikoan** sortu zela, balet klasikoan erabili aurretik, eta hementxe bertan, gure dantzetan. ETC-prentsa

8 *aro berri*

1973an Herri Ez lerrokatuen Mugimenduak Aljerren egin zuen bileran garbi aldarrikatu zuen "informazio eta komunikazioaren **aro berria** ". Txema Ramirez de la Piscina

Aro berria , atomo aroa, lehenik gerla baten bururatzeko, gero gerla hotzeko arma, azkenik gero eta gehiago hedatzen ari dena. Herria

Erakundearen **aro berria** abiatu delakoan zaude? Berria - Mundua

Aro berriaren ezaugarriak ondorengo hauek dira: deszentralizazioa, globalizazioa, harmonizazioa eta permisibitatea. Txema Ramirez de la Piscina

-Aro berria du gure Elizak, **aro berria** Nafarroako Erresumak... Aingeru Epaltza

Gerra Zibila amaitu eta Bigarren Mundu Gerra aurrera zihoan heinean, **aro berria** hasi zen iheslarientzat. Jokin Urain

Baina hau - esango dizute **aro berriaren** harrotasunez - metafisika positibista da, hots, "zientifikoa"; filosofiko idealistaren aurka, naturaren filosofian oinarritua. Joxe Azurmendi

Asis hiri ondoan hobiratua, hainbeste eta halako mirari ezberdinez hasi zen nonahi distiratzen, non oso denbora gutxian mundu gehiena **aro berria** mirestera erakarri baitzuen. Askoren artean

Eta ogiaren pare-parera etorrita, ia ordu oroko: "ogiberri" nola, halaxe aroaren ordu oroko jakingura beti **aro berriarena** ere. Pello Zabala

Lege idatzi baten bidez, ordu arte sakabanatuta zegoena testu bakar batean jartzekoa zen, gizabanakoaren adimen eta arrazoimenaren argitan, **aro berriari** zegozkion lege zibil berriak egokiro eho eta mamituak. Andres Urrutia

9 *Aro Dinastiko Goiztiar* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Egiptoko **Aro Dinastiko Goiztiarrean** sortutako sistema politiko, kultural eta erlijiosoa aro honetan oinarritu zen. ETC-entziklopedia

10 *Aro Garaikide*

Zibilizazio modernoari arin-arin egokitzera behartua ("ayer éramos bárbaros montañeses rodeados de pueblos cultos; hoy marchamos a su lado"), **Aro Garaikidean** zorokilo samartua ei dabil euskal izpiritu primitiboa, euskaldun guztiak. Joxe Azurmendi

Bere hainbat eleberritan (Misses Dalloway, Orlando) giza psikologia, emakumezkoen eskubideak eta **aro garaikideko** errealitate zatikatuaren ikuspegia jorratu zituen, besteak beste. Berria - Kultura

11 *aro geologiko*

'Hori aspaldian gertatu zen,' dio Andonik, 'hogeita zazpi **aro geologiko** suntsitzaile pasatu dira harrezkero.'. Joseba Sarrionandia

Planeta gorriaren **aro geologikoen** bereizketa egin dute 'Mars Express' zundari esker. Berria - Gaiak

12 *Aro Glaziar* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Hala ere, Amerikaren okupazioa azken **Aro Glaziarraren** maximoan gertatu zen, orain dela 16.000 urtetik 13.000 urtera bitartean. ETC-entziklopedia

Aro glaziarretatik , ordea, ezer gutxi geratzen zaigu, egon baziren ere. ETC-prentsa

Haien ustez, klima gizakiaren jardueraren ondorioz berotu beharrean, hoztu egingo da nabarmen, eta **aro glaziar** txiki berri batean sartuko gara. ETC-prentsa

Frogatzerik izan ez badute ere, badirudi 140 milioi urteko beste ziklorik ere badagoela, hain zuzen ere **Aro Glaziarrekin** erlazionaturik egon daitekeena. ETC-prentsa

Aro glaziarrean izotzez estali gabe zeuden eskualdeetan daude diploideak, landareak luzaroan bizi izan diren eskualdeetan, alegia. ETC-literatura, saiakera

13 *Aro Helenistiko* *(corpusean ez dago; ETCn **37** agerraldi)*

Une horretan bukatu zen Greziako aro klasikoa, distiratsuena eta emankorrena zalantzarik gabe, **aro helenistikoari** bide emanez. ETC-literatura, saiakera

Atenasen ezaugarri bereziak ere - **aro helenistikoa** delako garaian mundu heleniko osoari pasatu zizkionak (Espartak ez bezala, honen bilakaera berezia bide itsua izan baitzen)- lorturiko ezaugarriak izan ziren, eta hauen sorrera ikuspuntu orokor batetik bakarrik atzeman daiteke. ETC-literatura, saiakera

Batetik, mendeak hamarkada bihurtu zaizkigu denbora azeleratu honetan, baina, alderantziz, sareak askoz trinkoagoak dira **aro helenistiko** erromatarrean baino. ETC-prentsa

Aro helenistikoan zehar Alexandro handinahiak gidatutako gizaki gisa azaltzen da, SKLORWLPLD ezagunak gidatutakoa, alegia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lan hori kultura greko-erromatarrean eta, zehatzago esanda, Greziako **aro helenistikoan** sustraitzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Batetik, mendeak hamarkada bihurtu zaizkigu denbora azeleratu honetan, baina, bestetik, gure globalizazioan, sare mota guztiak askoz trinkoagoak dira **aro helenistiko** erromatarrean baino. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azterketa horiek hiritar balioak eta jardunbide tradizionalak aurkitzen jakin dute ekialdeko erresumetan, **aro helenistikoan** . ETC-zientzia, zuzenbidea

14 *Aro Ilun*

Atzera begiratuta nabaria den bezala, azken aro honek ez du zertan lotsatu iluntasunaz, barbaro su-emaileen suteek azkenean eurak erre zituztela esan nahi duen iluntasunaz; eta errauts-geruza batek sugarrek erretako lurgaina estaltzen badu ere, **Aro Iluna** sortzaile gertatu zen, Aro Heroikoa inola ere ez bezala. Iñaki Mendiguren

15 *aro klasiko*

Honela ahaleginak egin dira agerian jartzeko arau-multzo horiek aurkez ditzaketen identitateak eta ezberdintasunak, **aro klasikoan**, Gramatika orokorrean, Historia naturalean, eta Aberastasunen azterketan. Xabier Arregi

XIII. mendearen eta **aro klasikoaren** bitarte horretan, giza jarduera guztiak eraldatu ziren Europan. Juan Garzia

Atenas, **aro klasikoan**, finantzagune indartsua zen, eta bertatik egiten zituzten eragiketak bankuek eta merkataritza-elkarteek, Mediterraneo guztian eta Itsaso Beltzean Cameron, 1989, 35 or.. Koro Navarro

Eboluzionismoan bezala, Mendebaldeko primitibismoa Antzin **Aro klasikoan** jaio zen. Askoren artean

Garai horretan kokatu beharra dago zalantzarik gabe haien bizialdiaren **aro klasikoa**. Juan Garzia

16 *Aro Mesozoiko* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Mesozoikoa fanerozoikoko bigarren garai geologikoa da, orain dela 245-65 milioi urteetan igarotakoa. Hiru aldi nagusitan banatzen da **aro mesozoikoa**, zaharrenetik berrienera: triasikoa, jurasikoa eta kretazeoa. ETC-entziklopedia

Meso jarri diogu **aro mesozoikoagatik**, armiarmaren aroa hori izan zelako. ETC-prentsa

Horrela amaitu zen **Aro Mesozoikoa**, 160 milioi urteren ondoren. ETC-prentsa

17 *Aro Moderno Berantiar* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

XVIII. mendean ezagutzaren eta teknologiaren metaketak masa kritiko nahikoa zuen Industria Iraultza baimentzeko. Honekin, **Aro Moderno Berantiarra** hasi zen, 1800etik aurrera eman zena. ETC-entziklopedia

18 *Aro Moderno Goiztiar* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

"Suabiako itsasoa" izen poetikoa, **Aro moderno goiztiarreko** eta Ilustrazioko idazleek hartu zuten antzinako egileengandik, ziuraski, Publio Kornelio Tazitorengandik. ETC-entziklopedia

Lan horiei gehitu behar dizkiegu, alde batetik, azken bi hamarkadetan Europako Erdi Aroko eta **Aro Moderno goiztiarreko** landa eta hiri-ekonomietan emakumearen presentzia berreraiki duten lan monografiko ugari, eta, beste alde batetik, Amerika aurre-kolonialeko eta Karibeko uharteetako sorgin-ehizari eta emakumeen bizitzei buruz egindako literatura eta dokumentazio-lan zabala. ETC-literatura, saiakera

19 *Aro Neolitiko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Pentsamendu-eskema honetan, giza aurrerapena "aro"-sail bat bezala agertzen da, etiketa teknologikoz bereizia: aro paleolitikoa, **aro neolitikoa**, aro kalkolitikoa, kobrearen aroa... ETC-literatura, saiakera

Historia sortu zenetik, eta, seguru asko, **Aro Neolitikoaz** geroztik, hiru jende mota egon izan dira munduan: goikoa, erdikoa eta behekoa. ETC-literatura, saiakera

Aro neolitikoan dagoeneko eskulturak egiten ziren. Terrakota erabiltzen zuten eta gehienetan emakumeen figurak egiten zituzten. ETC-entziklopedia

20 *Aro Neoproterozoiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ediacararra (izena Australiako Ediacara mendiengatik jasotzen du) denbora eskala geologikoaren banaketa bat da, **Aro Neoproterozoikoaren** hirugarren eta azken garaia. ETC-entziklopedia

21 *Aro Primario* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Aro Primarioaren bukaeran, tolestura handiak izan ziren ekialdeko ertzean, baina horiek ere desegin egin ziren; Tertziarioan, ordea, berriz ere gaztetu ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikatza erregai fosila da, **Aro primarioaren** aldi Karboniferoan metatutako landare hondarrek jasandako eraldaketen azken emaitza. Lau ikatz-mota daude: antrazita, harrikatz, lignito eta zohikatza. ETC-entziklopedia

22 *Aro Tertziario* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Lurpeko inguru heze eta ilunetan bizitzera ohitutako animalia horiek troglobioak dira: gehienak **aro Tertziarioan** bizi ziren eta dagoeneko lurrazaletik desagertu diren izakien ondorengoak dira. ETC-prentsa

23 *aro vediko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Garai vedikoa (edo **aro vedikoa**) "Vedak" moldatu zituzten garaia da, Indo-ariar hizkuntzak indo-arioen testu sakraturik zaharrenak direnak. Literatura-ikerketak egin ondoren, adituek K.a. 1500 eta K.a. 327 artekotzat jotzen dute garaia. ETC-entziklopedia

24 *aro victoriano* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Garai horretan inperio honek beste batzuen sorrera ekarri zuen, horien artean inperio alemaniarra eta inperio italiarrarena. Britainiar inperioa sendotu egin zen **Aro victorianoan** zehar (1837-1901). ETC-entziklopedia

25 *Behe Brontze Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Behe Brontze Aroa (Europan K.a. 1800-1500) brontze metalurgiaren sorreraren garaia da. ETC-entziklopedia

Bradley-k (2000a) berriz induskatu ondoren, ordea, jakin zen **Behe Brontze Aroan** hasi zirela eraikitzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

26 *Behe Erdi Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **281** agerraldi)*

Behe Erdi Aroa -"Erdi Aro Berantiarra" edo "Erdi Aro Beranta" izenez ere ezaguna- historialariek Europako historian XIV. mendea XIV. eta XV. mendea XV. mendeei deitzeko erabiltzen duten izena da. ETC-entziklopedia

Arana Goirik ez zituen estudiatu Monarkia Piriniotarraren nondik norakoak, ez eta euskal **Behe Erdi Aroa** ere. ETC-literatura, saiakera

Behe Erdi Aroan, ekonomia feudala kondenatua zegoen, mende bete baino lehenagotik zekarren metaketa-krisiaren aurrean. ETC-literatura, saiakera

Christine de Pizanek ere, **Behe Erdi Aroko** aitzindari hark, aita eta senarra hil zitzaizkionean, gizon-bizimodua egitea aukeratu zuen, rol maskulino bat harturik, eta horrexek eman zion askatasuna idazten hasi eta lumaz bizibidea atera zuen lehenbiziko emakumea izateko. ETC-literatura, saiakera

Hondoratzen ari zen eta alde batera utzi nahi zuten mundu hori **Behe Erdi Aroko** krisialdiko Durangaldea zen. ETC-literatura, saiakera

Behe Erdi Aroan kontinente zaharreko bazter guztietara zabaldu zen. ETC-prentsa

Behe Erdi Aroan larriki areagotu zen basoaren ustiapena, abeltzaintzaz gain, burdinaren metalurgia agertu baitzen. ETC-prentsa

Behe Erdi Aroan Nafarroako erregeen egoitza bilakatu zen Erriberri. ETC-prentsa

Giza biluziaren irudi batzuk egin zituen, Adam eta Eba grabatua haien artean, eta **Behe Erdi Aroko** Alemanian oso polemikoak izan ziren. ETC-prentsa

Adituen arabera, ez dago Europan beste inon **Behe Erdi Aroko** horrelako beste artxiborik. ETC-prentsa

Behe Erdi Arokoa da, eta bere garaian helburua bertzelakoa zen, bidaiariak lapurretatik babestea, alegia. ETC-prentsa

Behe Erdi Aroan agertu ziren elkarteok, eta poliki sekulako indarra hartu zuten. ETC-prentsa

Behe Erdi Aroan hasten da emakumeek hezkuntzaren alorrean izandako ibilbidea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Labore-arrastoak dira aztarnategi berrien iturri emankorrena, batez ere Goi Neolitotik **Behe Erdi Arorainokoetan**. ETC-zientzia, zuzenbidea

27 *Berant Erdi Aro*

Italian **Berant Erdi Aroan** helenismoaren berpizkundeak eragin iraunkorragoa zertu zuen Mendebaldeko bizitzan politikan literatura edo artean baino. Iñaki Mendiguren

28 *Eduardotar Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Eduardotar Aroa (ingelesez "Edwardian era" edota "Edwardian period") Erresuma Batuan Eduardo VII.aren erregealdia jazo zen denboraldiari deritzaio, alegia 1901-1910 artean. ETC-entziklopedia

29 *Egiptoko Aro Aurredinastiko* *(corpusean ez dago; ETCn **37** agerraldi)*

Egiptoko Aro aurredinastikoa izenarekin bi lurren bateraketa gertatu aurreko aro aurrehistoriko eta historikoa ezagutzen da. ETC-entziklopedia

Abidosen aurkitu dira **Egiptoko Aro aurredinastikoko** agintarien aztarnak, tenpluak eta hilobiak. ETC-entziklopedia

Egiptoko aro protodinastikoa (K.a. 3200 eta K.a. 3000 bitartean kokatzen dena), **Egiptoko aro aurredinastikoaren** azken fasetzat hartzen da. ETC-entziklopedia

Egiptoko Aro aurredinastikoan zehar egipziarrek izadiaren gertaerak jainkotu zituzten. ETC-entziklopedia

Klimak influentziak garrantzitsua zuen: **Egiptoko Aro aurredinastikoa** aro aurredinastikoan, desertu zonetan landaredia zegoen eta artzaintza ahalbidetzen zuen horrek. ETC-entziklopedia

30 *Egiptoko Aro Berantiar* *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Bere gurtza toki nagusia Heliopolis izan zen. Pithom, Meidum, Letopolis, Edfu, Herakleopolis eta Jargako oasian **Egiptoko Aro Berantiarrean** ere bai. ETC-entziklopedia

Gurtza bera, Napatan eta Siwako oasian ere bazegoen, non kono formako harria, **Egiptoko aro berantiarrean**, zilbor batekin alderatua izan zen. ETC-entziklopedia

Egiptoko aro berantiarraren amaierakoa da. ETC-entziklopedia

Testuaren hasierako zatiren batzuk bakarrik ezagutzen dira, Egiptoko Inperio Berriko ostraketan eta **Egiptoko aro berantiarreko** zurezko taulatxo batean kontserbatuak. ETC-entziklopedia

31 *Egiptoko Tarteko Bigarren Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Proiektu handi hauek eta bere erregealdian izan ziren Nilo ibaiaren uholde handiek inperioaren gainbehera ekarri zuten, eta Egiptoko XIII. dinastia eta XIV. dinastiaren artean **Egiptoko Tarteko Bigarren Aroa** hasi zen. ETC-entziklopedia

Istorioa, Egiptoko Antzinako Inperioaren erorketa erakusten zuen elezahar historikotzat hartzen da, edo **Egiptoko Tarteko Bigarren Aroan** zegoen ustezko kaosak inspiratutako aiene bat, zenbait mende beranduago, edo, beharbada, baita bi gertaeren konbinaketa bat ere. ETC-entziklopedia

32 *epai aro* *(orobat **epaiaro**)*

Horregatik **epai-aro** deitzen zaio belar lanetako sasoi honi, lehenago garia ebakitzen zenekoari bezalaxe: **epaiaro** ziren biak hala biak. Pello Zabala

33 *Erdi Aro Berant* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Behe Erdi Aroa -"Erdi Aro Berantiarra" edo "**Erdi Aro Beranta**" izenez ere ezaguna- historialariek Europako historian XIV. eta XV. mendeei deitzeko erabiltzen duten izena da. ETC-entziklopedia

34 *Erdi Aro Berantiar*

Horrengandik klabiatura izpiritual desberdinak bereizten zuen, Taulerrena, Eckhartena bezala, lehorragoa baitzen, eta Susorena irudimenera eta grafismo bapikatuetara isuriagoa, **Erdi Aro berantiarreko** herri-pietatetik hurbilago zegoena. Joan Mari Lekuona

35 *Erdi Aro Bete* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Erdi Aro Klasikoa, **Erdi Aro Betea** edo Tarteko Erdi Aroa Europako historian historialariek XI., XII. eta XIII. mendeei ematen dieten izena da. ETC-entziklopedia

Erdi-Aro betean, berrehun bat urtez izana da beroaldi bat pollita. ETC-prentsa

Erdi Aro betean berreskuratu zen idazketa: "IX., X. eta, batez ere, XI. mendean, orduko dokumentazio pila bat dago, Donemiliaga Kukulako monasterioan edo Santo Domingo de la Calzadako artxiboan topatutakoak bezala". ETC-prentsa

Erdi Aro betean, herriak jauntxoei ordaindu beharreko zergek, ez zuten deus ikustekorik nazio edo patriaren ideiarekin. ETC-literatura, saiakera

36 *Erdi Aro Goiztiar* *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Goi Erdi Aroa -"**Erdi Aro Goiztiarra**" izenaz ere ezaguna- Europako historian historialariek gutxi gorabehera 500tik 1000 arteko garaiari ematen dieten izena da oro har. ETC-entziklopedia

Erdi Aro goiztiarreko 336 hilobiko nekropolia eta Brontze Aro berantiarreko txabola baten arrastoak azaleratu dituzte Pirinioetako autobiako lanek, Elo inguruan (Nafarroa). ETC-prentsa

Erdi Aro goiztiar batean, VI. mendean, gerrak, borrokak eta hilketak egunerokoak eta pertsonaia mitologikoak benetakoak bezain "errealak" zirenean. ETC-prentsa

Kodeak bake-hitzarmen tankera du, **Erdi Aro Goiztiarrean**, justizia publikoa ezartzeko, Europan hainbat erregek emaniko "bake"-en antzera. ETC-literatura, saiakera

Erdi Aro goiztiarrak Antzinate berantiarretik jaso zuen zazpi arte liberalen sailkapena, eta giza jakintzaren sailkapen orokortzat ez ezik, monje-eskolen eta katedral-eskolen curriculumtzat ere baliatu zen XII. mendera arte. ETC-zientzia, zuzenbidea

37 *Erdi Aro Klasiko* *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Erdi Aro Klasikoa, Erdi Aro Betea edo Tarteko Erdi Aroa Europako historian historialariek XI., XII. eta XIII. mendeei ematen dieten izena da. ETC-entziklopedia

Leonor Akitaniakoa (1122-1204) Mendebaldeko Europako emakumerik aberats eta boteretsuenetako bat izan zen **Erdi Aro klasikoan**. ETC-entziklopedia

Erdi Aro Klasikoan suediarren eragina nabarmentzen hasi zen eta Suedia Erresumak eginiko lurralde banaketan. ETC-entziklopedia

Erdi Aro klasikoan bezala, egun fundamentalismoak ugari direlako, baina guztiok fundamentalista garelako, gure ugaritasuna onartzetik abiatu behar gara. ETC-literatura, saiakera

38 *Erdi Brontze Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Erdi Brontze Aroa (Europan, K.a. 1500-1200) Brontze Aroko bigarren garaia da, Erdi Europan Tumuluen kulturaren garapena ezaugarri nagusia duena. ETC-entziklopedia

Megalitiko izenondoa, aldiz, gero eta gehiago erabiltzen da gizartearen beste alderdi batzuk aipatzeko, hala nola megalitoak eraiki ziren garaiko artea aipatzeko; batez ere, Neolitokoa eta Aitzin Brontze Arotik **Erdi Brontze Arora** bitartekoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

39 *Esplorazio Aro* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Portugalgo Erresuma 1139an Iberiar Penintsularen mendebaldean, Alfontso I.a errege izendatutakoan, sortutako estatua izan zen. Erdi Aroan zehar hegoalderantz hedatu zen, Al Andalusko musulmanei lurrak konkistatuta. **Esplorazio Aroan**, Portugal nabarmendu zen Afrika hegoaldetik zeharkatuz eta Brasil kolonizatuz. ETC-entziklopedia

40 *Esplorazioen Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi)*

Esplorazioen Aroa XV. mendetik XVII. mendera bitarte eman zen garai historikoa da. ETC-entziklopedia

Itsas garapen iberiarra (1400-1600) nabarmena izan zen, **Esplorazioen Aroa** irekiko zuena. ETC-entziklopedia

Anberesko urrezko aroa **Esplorazioen Aroarekin** lotuta dago. ETC-entziklopedia

41 *Georgiar Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Georgiar Aroa Erresuma Batuko historiako garai bat izan zen. ETC-entziklopedia

Ingalaterra, **Georgiar Aroa**. Elkarren artean zehar ezberdinak diren bi ahizpa bizi batera bizi dira: bata, Elinor (Emma Thompson), arrazoi eta zentzuduna; bestea, Marianne (Kate Winslet), sentiberatasun eta pasio hutsa. ETC-entziklopedia

Aro honen aurrekoa **Georgiar Aroa** izan zen, eta ondorengoa, Eduardotar Aroa. ETC-entziklopedia

42 *Goi Brontze Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Goi Brontze Aroa edo Azken Brontzea burdinaren erabilpenaren aurreko Brontze Aroko garaia da. ETC-entziklopedia

Lehengo sinesmenak erabat baztertu direla agerikoa da; izan ere, **Goi Brontze Aroko** lursail-sistemak lehengo monumentuak zeharkatzen ditu, halakoen aztarna lausoenak milaka urtez errespetatu baziren ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

43 *Goiz Erdi Aro*

Ikusi dugu Mendebaldeko Gizartea, lehenengoz **Goiz Erdi Arotik** sortu zenean, nekazari-gizartea zela, non hiri-bizitzako ahaleginak hain baitziren exotikoak, ezen haietako batzuk hasieran atzerriko judu-diasporak zertu baitzituen, jentilek beren judu bihurtzeko zuten nahiagatik klase ertain jentila sortu zen arte. Iñaki Mendiguren

44 *Holozeniar Aro* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Holozeniar egutegia edo **Holozeniar aroa** "Anno Domini"ri (AD) 10.000 urte gehitzen dituen egutegia da, lehendabiziko urtea Holozenoren hasieran kokatuz. ETC-entziklopedia

45 *informazio aro* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Informazio aroa XX. mendearen bukaeratik aurrera informazioak eta bere hedapenak gizarteen garapen ekonomiko nahiz kulturalerako izan duten garrantziari erreferentzia egiten dion aro historikoa da. ETC-entziklopedia

Egungo **informazio aro** eta teknologia berrien bitartez, ordea, bestelako kontzeptu baten aurrean geundeke: cyberpunk imajinarioa. ETC-prentsa

Joan Jose Uranga Unanue sakramentinoa sortzez Zestoako Arroa auzokoa da, eta beraz, nekazaritzako gizartetik **informazio arora** bitarteko ibilbidean eman den aldaketa izugarria oso hurbiletik ezagutu du. ETC-prentsa

Informazio-aroaren eskaerei erantzunez, informazio geografikoko sistemen (GIS) teknologia aplikatzen da gero eta gehiago mapagintzan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Informazio aro honetan, gehiegi dira debekatutako gaiak, zentsurapean aritzen diren hedabide eta kazetariak, ez ikusiarena behin eta berriro egiten duten politikariak. ETC-literatura, saiakera

Lan honek nik burututako tesi honetan du eratorria: "Arte, hibridazioa eta teknologia berriak **informazio aroan** ". ETC-zientzia, zuzenbidea

46 *informazioaren aro*

" **Informazioaren aroan** izateak ez du erran nahi industria eta laborantza desagertuko direnik», erantzun dio. Berria - Euskal Herria

Informazioaren aroa ate joka ari zaigu. Iñaki Heras

Hala ere, honako hau **Informazioaren Aroa** dela kontuan harturik ezin ahaztu sare elektronikoak komunikabideetan izan duen eragina. Berria - Gaiak

Helburuak oso garbi ditu: **informazioaren aroan** gaudelarik, gizarte-mugimendu ekintzaile berria sortzen laguntzea agintean dauden egiturak eraitsi ahal izateko eta, bizi garen XXI. mende honetan, aldaketa handiak lantzen joan gaitezen. Txema Ramirez de la Piscina

47 *Islamiar Urrezko Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Islamiar Urrezko Aroa Islamaren historiako loraldi kultural, ekonomiko eta zientifiko bat izan zen, tradizionalki VIII. mendetik XIV. mendera bitartean gertatu zena. ETC-entziklopedia

48 *izotz-aro* *(orobat **izoztaro** g.er.)*

Azken 700.000 urtean zortzi **izotz** -aro eta zortzi bero-aro izan direla da atera duten ondorio nagusia. Berria - Gaiak

Orain 1100 urte-edo, Erdi Aroan, beroaldi ttiki bat izan genuen bezala, orain 400 urte inguru, **izotz** -aro ttiki bat izan genuen. Pello Zabala

Izotz Aroa berriz etorriko ote den ipar Europara aipatzen da batzuetan, eta zantzu zientifikoak badira hori pentsatzeko. Berria - Gaiak

Arkeologoen esanetan, azken **Izotz Aroa** baino lehenago iritsi zen gizona Amerikara, orain 30.000 urte inguru. Berria - Gaiak

Geroago ekarri genituen iparraldetik hemen **izoztaroan** bizi ziren abereak. Berria - Euskal Herria

49 *Izotz Aro Txiki* *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)*

Izotz Aro Txikia (IAT) izotz denboraldi bat izan zen, Erdi Aroko Beroaldia deituriko sasoi bero baten ostean gertatu zena. ETC-entziklopedia

Antzinaro Berantiarreko **Izotz-Aro Txikia** izena ere jaso dute gertaera horiek, mundu mailan eragin zuten tenperaturaren jaitsiera nabarmena zela eta. ETC-entziklopedia

Zenbait gosetek eta izurritek populazioa ia erdira murriztu zuten, Erdi Aroko Beroaldia bukatu eta **Izotz Aro Txikia** edo Izotzaldi Txikia hasten zelarik. ETC-entziklopedia

Izan ere, XIV. mendean hasi eta XIX. mendearen erdira arte, **Izotz Aro Txikia** gertatu zen, eta horren urterik hotzenak Lakiren erupzioa baino lehentxoago izan ziren. ETC-prentsa

Gogoratu duenez, klimatologoek **Izotz Aro Txikia** deiturikoan (1600-1850 artean, gutxi gorabehera) orain baino giro askoz hotzagoa egin zuen, eta, hala ere, muturreko fenomeno asko gertatu ziren. ETC-prentsa

Izagirrek uste du Pirinioetako glaziarrak azken glaziazioan ez, baizik **Izotz Aro txikian** -XVI-XVIII. mendeetan- eratu zirela. ETC-prentsa

50 *Kobre Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Europan, **Kobre Aro** edo Kalkolito esaten zaio garai horri. ETC-zientzia, zuzenbidea

Metal Aroa Eurasiako historiaurreko aro teknologiko bat da, Kalkolito edo **Kobre Aroa** , Brontze Aroa eta Burdin Aroa barne hartzen dituena, hurrenik hurren. ETC-entziklopedia

Hileta-monumentu hauek Kalkolito edo **Kobre Arokoak** dira. ETC-entziklopedia

Gaur egun, Thomsen sisteman oinarrituta, **Kobre Aroa** edo Kalkolitoa dator Brontze Aroaren aurretik. ETC-entziklopedia

Eremu honek, Monte Lauro mendigunetik ez oso urrun, Kalkolito edo **Kobre Aroaz** geroztik interesa piztu du, izan ere, Iblei eskualde osoak bezala, merkatari-aukera bikainak eskeintzen zituen sukarri-erauzteari esker. ETC-entziklopedia

Hurrengo garaietan (Kalkolito edo **kobre aroan** , brontze aroan eta burdin aroan) metalurgiaren garapena gertatu zen. ETC-entziklopedia

Litekeena da Kalkolito edo **Kobre Aroan** eraikia izatea, k.a. 2500 inguruan. ETC-entziklopedia

51 *krisi aro* *(orobat **krisiaro** g.er.)*

Hain zuzen ere **krisi** -aro horretan sortzen da berriro indarberriturik [...] zuzeneko esperientzia eta hunkitze erlijiosoaren premia. Joan Mari Lekuona

Krisiaro honen lekukotza inpresionagarri askoa, Diltheyk ematen digu. Joxe Azurmendi

52 *kristau aro*

Kristau-aroaren hasiera. Iñaki Mendiguren

Ez zegoen batere frogarik Jesus **kristau-aroko** lehen urtean jaio zela esateko. Iñaki Mendiguren

Kristau- aroko bigarren mendearen bukaera aldera. Iñaki Mendiguren

kristau-aroko hogeigarren mendeko erlijio nagusiak. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko Gizartearen Erdi Aroko hasiera, **kristau-aroko** hamaikagarren mendean. Iñaki Mendiguren

53 *Metal Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Metal Aroa Eurasiako historiaurreko aro teknologiko bat da, Kalkolito edo Kobre Aroa, Brontze Aroa eta Burdin Aroa barne hartzen dituena, hurrenik hurren. ETC-entziklopedia

Metal Aroko lehen garaitzat daukate askok. ETC-prentsa

Metal Aroko arma zuriak ikus daitezke, hasiera batean brontzez eta ondoren burdinaz eginikoak. ETC-prentsa

La Hoya **metal aroko** herrixkaren aztarnategian hamasei urtez eginiko lana eskertu nahi izan diote. ETC-prentsa

Jadanik **Metal Aroan** eta Neolitikoan, etxekotu zuen gizonak txerria. ETC-prentsa

Hau da, galiarrak **Metal Aroan** sartuta zeuden bete-betean, Neolitoa atzean utzia zuten. ETC-prentsa

54 *Oraingo Aro* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Oraingo Aroa egutegi gregorianoko urteak zehazteko erabiltzen den notazio sistema bat da, Dionisio Eskasak ezarritako Anno Domini notazioaren ordezko gisa. **Oraingo Aroa** baino lehengo urteei Oraingo Aroaren Aurrekoa deritze. ETC-entziklopedia

Herriaren lehengo aztarnak **oraingo aroaren** aurreko 1.200. urtekoak dira, Brontze Aroaren amaierakoak, alegia. ETC-prentsa

55 *Oraingo Aroaren Aurreko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Oraingo Aroa egutegi gregorianoko urteak zehazteko erabiltzen den notazio sistema bat da, Dionisio Eskasak ezarritako Anno Domini notazioaren ordezko gisa. Oraingo Aroa baino lehengo urteei **Oraingo Aroaren Aurrekoa** deritze. ETC-entziklopedia

56 *quark-aro* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Quark-aroa gutxi gorabehera Big Bangetik pikosegundo 10? 12 segundora hasi zen, elkarrekintza nuklear ahularen aroa amaitu zenean eta indar hau elektromagnetismotik bereiztu zenean. ETC-entziklopedia

57 *Sengoku aro* *(corpusean ez dago; ETCn **205** agerraldi)*

Sengoku Aroa Japoniako historiako gerra zibilen aro luze bat izan zen. ETC-entziklopedia

Japoniako **Sengoku aroaren** amaiera aldera Toyotomi Hideyoshiren aldekoen eta Oda Nobunagaren semea zen Oda Nobutakaren aldekoen artean gertatu zen gudu bat da. ETC-entziklopedia

XV. mendearen amaieran, **Sengoku Aro** edo Sengoku garaiaren hasieran, Japoniako botere politikoa, titulu ezberdinak zituzten jaun feudalen artean banatua zegoen, shugoak, shugodaiak, etab..., daimyo ere deituak. ETC-entziklopedia

58 *Tudor Aro* *(corpusean ez dago; ETCn 7 agerraldi)*

Tudor Aroa, orokorrean, 1485 eta 1603 urteen arteko denborari dagokio, bereziki Ingalaterrako historiari dagokionez. ETC-entziklopedia

59 *urre aro*

Gaztetasuna da benetako Saturnoren Erreinua, **Urre Aroa** lurrean berritua, sasiak pikuak ematen zituena, zerriek txistu hotsei kasu egiten zietena, zurdak zetazkoak zituztena, jatenetako beti pagotxa zutena... Xabier Olarra

Arkaismoa "erlojua atzeratzeko" ahalegina da, futurismoa bidezidorra hartzeko ahalegina Lurrean ezinezkoa den mila urteko **urre-arorako**. Iñaki Mendiguren

Hitzaldi bero luze hau guztia (utzi ere utzi zitekeena noski) egin zien gure zaldunak ahuntzainei, harako ezkur haiek **urre-aroa** gogorazi baitzioten; eta alferrikako arrazoibide hura guztia ahuntzainei esatea bururatu zitzaion; hauek, hitzik erantzuteke, zoraturik, entzun eta entzun zintzilik egon ziren. Patxi Ezkiaga

Igartzen da bai, gure ingurumariko gauzak egun baino zinezkoagoak, zehatzagoak, finkoagoak eta egonkorragoak ziren garaikoa izandua dela pipitakien **urre aroa**. Patziku Perurena

60 *urrezko aro*

Gaur egun, Filipinetako pilotaren **urrezko aroa** bukatua da. Ramuntxo Etxeberri

K.o. 1914an bukatzen zen mendea Mendebaldeko klase ertainaren **urrezko aroa** izan zen. Iñaki Mendiguren

Batzuk zuek "**urrezko aroa**" deitzen duzuen horretakoak, beste batzuk gaurkoak, "burdinazko arokoak", horrela hitz egiterik balego. Patxi Ezkiaga

Beraz, bakea eta **urrezko aroa** ziren gailen, harik eta Saturno egotzi eta gero, zilegi zela erregeen aurka altxatzea irakasten hasi ziren arte. Esteban Antxustegi

Analisiaren **urrezko aroa**. Jon Muñoz

Imanol Uriberen Segoviako ihesa (1981) filmarekin 80ko hamarkada "euskal zinemaren **urrezko aroa**" legez definitzen du Roldanek. Berria - Kultura

Kixotek ahuntzainei hitz egin zieneko **Urrezko Arotik** gertuago gaudela esatea nahi nuke hamabi hilabete barru. Berria - Euskal Herria

Garai horiek zer nolakoak ziren imajina genezakeela oraindik, **urrezko arotik** hain hurbil non aro horretatik zenbait ekintzatako distira gordetzen baitzuten. Jon Alonso

Hori eginez gero, ez dut inolako zalantzarik ezin hobeto joango litzatekeela dena: gora egingo lukete zientziek eta loratu egingo litzateke merkataritza, **urrezko aroa** hasiko litzateke Errusian. Jose Morales

Beste behin, Urrezko Mendea deritzon alderdian ibili ginen, non Zerain sagardotegia aurkitzen den, eta Lópe de Vega, Góngora, Quevedo, Cervantes eta **Urrezko Aroko** idazle handi guztiak metro karratu gutxi batzuen inguruan bizi izan ziren. Ramon Saizarbitoria

XVIII. mendean gutun bidezko nobelak **urrezko aroa** izan zuen Frantzian, batez ere 1760 eta 1780 bitartean. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agian aro (10); **akordioen aro politikoa** (3); **ari den aro** (7)

aro aldaketa (5); **aro aurreko iii** (3); **aro aurreko v** (4); **aro aurreko vi** (3); **aro bakoitzean** (3); **aro bat itxi** (4); **aro bateko** (3); **aro baten amaiera** (6); **aro berri bat** (45); **aro berri batean** (11); **aro berri baten** (24); **aro berri bati** (9); **aro berri honetan** (4); **aro berria hasi** (5); **aro berria ireki** (6); **aro berria irekitzea** (3); **aro berria zabaldu** (3); **aro berriak** (7); **aro berriaren** (15); **aro berriari** (11); **aro berriaz** (3); **aro berriko lehen** (3); **aro desberdina** (4); **aro digitalean** (3); **aro edo** (4); **aro egokia** (3); **aro ezin** (4); **aro ezti** (7); **aro gaitza** (4); **aro geologikoen bereizketa** (3); **aro globalean** (3); **aro guztiek** (3); **aro handi** (3); **aro hartan** (11); **aro hau** (6); **aro hauta** (3); **aro heroiko** (6); **aro heroikoa** (10); **aro heroikoak** (3); **aro heroikoan** (3); **aro heroikoaren** (6); **aro hitsa zelarik** (3); **aro hitsak** (3); **aro hitsarekin** (5); **aro hobea** (8); **aro hobearekin** (3); **aro hobearen mentura** (3); **aro honetan** (11); **aro hori** (10); **aro horrek** (5); **aro horren** (3); **aro horretan** (7); **aro hura** (4); **aro ikerleek** (6); **aro ikertzaileek** (4); **aro ikertzaleek** (3); **aro iluna** (4); **aro jakin** (3); **aro klasikoan** (4); **aro komunistako errealismo** (3); **aro moderno** (5); **aro modernoa** (8); **aro modernoan** (17); **aro modernoaren egunsentian** (3); **aro modernoari** (4); **aro muttina** (3); **aro politiko berri** (11); **aro politiko berria** (12); **aro politiko berrian** (4); **aro politiko berriaren** (3); **aro politikoa ireki** (3)

arras aro (4); **arrunt aro** (4); **artean aro** (3); **aski aro** (10); **baina aro** (9); **berant aro modernoko** (3); **beste aro bat** (7); **beste aro batean** (5); **beste aro bati** (4); **beste aro politiko** (3); **beti aro** (4); **bi aro** (9); **bien arteko aro** (3); **bigarren aro** (5); **bilbo lagun aro** (3); **bizi aro** (3); **biziki aro** (3); **bizitzako aro bat** (4); **bizitzako beste aro** (3); **bizitzaren aro** (3); **da lagun aro** (3); **dago aro** (3); **den aro berrian** (5); **den aro politiko** (8); **dira aro** (6); **diren aro** (5); **duen aro politiko** (3); **dute aro** (3); **edo aro** (5); **egiteko akordioen aro** (3); **egungo aro** (5); **erdi aro** (32); **ere aro** (13); **goiz aro modernoko** (3); **golde aro** (5); **gure aro aurreko** (20); **haatik aro** (3); **hain aro** (3); **hainbat aro** (3); **hau aro** (4); **hiru aro** (7); **historiako aro** (4); **holako aro** (4); **honen aro** (3); **hori aro** (3); **horiek aro** (4); **iragan da aro** (3); **irekitako aro berria** (3); **izan zen aro** (4); **mendebaldeko historiaren aro** (5); **oles aro** (6); **orantza aro** (8); **taldearen aro** (3); **urrezko aro** (6); **urteko aro** (3); **uzta aro** (3); **zabaldu den aro** (5); **zabaldutako aro** (4); **ziren aro** (3); **zuen aro** (5); **zuen lagun aro** (4)

aroa amaitu (12); **aroa aro eztia** (3); **aroa arras** (4); **aroa arrunt hitsa** (4); **aroa aski** (4); **aroa beherapenean gaude** (14); **aroa beti** (6); **aroa bezain** (3); **aroa bizi** (3); **aroa bukatu** (4); **aroa da** (8); **aroa dela** (5); **aroa doi bat** (3); **aroa edo** (3); **aroa ere alde** (21); **aroa ere arrunt** (3); **aroa ere errotik** (3); **aroa ere gisa** (13); **aroa errotik alde** (3); **aroa ez delarik** (3); **aroa ezti** (3); **aroa frango** (3); **aroa gisa hartakoa** (6); **aroa gorapenean gaude** (11); **aroa haatik** (3); **aroa hasi** (6); **aroa hasiko du** (3); **aroa ireki** (4); **aroa iritsi** (3); **aroa izan zela** (3); **aroa lagun** (5); **aroa zen** (7); **bere aroa** (4); **bigarren aroa** (4); **brontze aroa** (3); **burdin aroa** (3); **den aroa** (3); **duen aroa** (6); **elkarrizketaren aroa** (3); **erdi aroa** (33); **ere aroa** (8); **gure aroa baino** (6); **hirugarren aroa** (5); **izotz aroa** (3); **kristau aroa** (3); **nahiz aroa** (7); **trujilloren aroa** (3); **urre aroa** (4); **urrezko aroa izan** (4); **uzta aroa** (7); **zen aroa** (3)

aroak ere (5); **aroak ez** (9); **aroak lagundu** (4); **erdi aroak** (10); **izotz aroak** (3)

aroan baino (3); **aurreko aroan** (4); **berant erdi aroan** (4); **bigarren aroan** (6); **burdin aroan** (4); **erdi aroan bezala** (4); **erdi aroan bizi** (3); **erdi aroan erabiltzen** (3); **erdi aroan ere** (4); **erdi aroan jadanik** (4); **erdi aroan mendebaldeko** (3); **erdi aroan zehar** (5); **globalizazioaren aroan** (4); **hirugarren aroan** (3); **informazioaren aroan** (3); **interneten aroan** (3); **lehenengo aroan** (3); **urrezko aroan** (3); **uzta aroan** (10); **zen erdi aroan** (7); **ziren erdi aroan** (5)

aroaren aldetik (11); **aroaren amaieran** (3); **aroaren aurreko** (3); **aroaren berri** (4); **aroaren gatik** (6); **aroaren hasieran** (4); **aroaren partetik** (6); **erdi aroaren** (23); **kristau aroaren** (4); **urrezko aroaren** (3); **uzta aroaren** (3)

aroari buruz (3); **aroari buruzko** (5); **aroari hasiera emateko** (3); **erdi aroari** (7); **irtenbideen aroari hasiera** (3)

erdi aroaz geroztik (3)

antzin aroko (5); **aroko aztarnategi** (3); **aroko bigarren mendearen** (3); **aroko errege** (3); **aroko gizon** (4); **aroko hamabosgarren** (3); **aroko hamahirugarren mendean** (3); **aroko hamaikagarren mendean** (3); **aroko hemeretzigarren mendearen** (3); **aroko hirugarren mendean** (4); **aroko hogeigarren mendean** (17); **aroko hogeigarren mendearen** (8); **aroko hogeigarren mendeko** (3); **aroko laugarren mendearen** (3); **aroko mendebaldeko kristandadeak** (3); **aroko mendebaldeko kristandadearen** (5); **aroko mendebaldeko kristau** (4); **aroko pentsaera** (3); **aroko pentsamenduan** (3); **aroko zazpigarren mendean** (5); **aurreko aroko** (3); **baina erdi aroko** (3); **baque lagun aroko** (3); **bere erdi aroko** (3); **brontze aroko** (3); **burdin aroko** (5); **da erdi aroko** (13); **den erdi aroko** (3); **ditu erdi aroko** (3); **du erdi aroko** (3); **dugu erdi aroko** (3); **erdi aroko arkitektura** (3); **erdi aroko beste** (3); **erdi aroko eskuizkribu** (5); **erdi aroko filosofia** (8); **erdi aroko filosofiak** (5); **erdi aroko filosofian** (4); **erdi aroko filosofiaren** (3); **erdi aroko garai** (5); **erdi aroko gaztelu** (3); **erdi aroko ikerketen** (3); **erdi aroko kristau** (4); **erdi aroko kutsua** (3); **erdi aroko mendebaldea** (4); **erdi aroko mendebaldeko** (22); **erdi aroko musika** (4); **erdi aroko pentsaerak** (4); **erdi aroko pentsaeraren** (8); **erdi aroko zaldun** (5); **gure aroko** (7); **harri aroko** (3); **kristau aroko bigarren** (3); **kristau aroko hamahirugarren** (4); **kristau aroko hamaikagarren** (3); **kristau aroko hamaseigarren** (7); **kristau aroko hamazazpigarren** (6); **kristau aroko hemeretzigarren** (6); **kristau aroko hemezortzigarren** (3); **kristau aroko hirugarren** (4); **kristau aroko hogeigarren** (31); **kristau aroko laugarren** (6); **kristau aroko lehen** (3); **kristau aroko zazpigarren** (7); **lehen aroko** (3); **lizarrako erdi aroko** (3); **zen erdi aroko** (6); **zen kristau aroko** (3); **zuen erdi aroko** (5)

erdi arokoa da (3); **harri arokoa dela** (3)

erdi arokoak (3)

erdi arokoek (4)

erdi arokoen (3)

erdi arokotzat (5)

erdi arora (6)

bi arotan (3)

arotik gaur (3); **arotik hona** (3); **erdi arotik** (20)

---

aro^2 *iz* eguraldia; giroa.

Aukeran sargori eta beroegi duzu **aroa** niretzat. Juan Garzia

Eguzki zoragarria, egun osorako **aro** ederra agintzen duen lanbro arin batekin. Monika Etxebarria

Gutienik egun batzuez izanen bagenu **aro** ona lagun! Xabier Montoia

Eta zuk berriz ihardesten baldin badiezu haizea jaiki dela, itsasoa bezperan hasia zelako harrotzen, nahiz **aroa** bare zen oraino; gizona, berriz, adiskide batek gonbidatua zuela. Piarres Xarriton

Artean gau **aro** ederra zegoen, ilargiaren adar biak elkar ukitu nahirik bezala ikusten ahal ziren, eta hantxe lotu nintzen. Edorta Jimenez

"... Ez sentitzea beste zaporerik **aroaren** epelaren baitako laranjondoen azahar-lorearena baino." Juan Garzia

Anitz urte hauetan **aro** txarra ukan dugu ardurenean uso ihiziko sasoinean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Uda egiazki jin aitzin, **aroa** hezea, hotza, lanotsua izaiten da eta hori ez da ardien onetan: batzuk eztulka, mainguka, besteak mehatzen, esnea galtzen; beha dago artzaina, kexu, agian eguzkiak laster berotuko duela eta bazterrak berdatuko direla. Michel Oronoz

Arrats hartan bi gizon, ingelesak, mugaraino lagundu behar zituen, ekaineko **aro** eder eta epel batez, ilargi xuria lagun. Eneko Bidegain

[...], gaueko oturuntzei argi egiteko, nahizta etxeak zilarrez eta urrez dirdir egin ez, edo urrezko kasetoidun tenpluetan zitara hotsik entzun ez; aski du ibai ondoko belar finean, zuhaitz luze baten itzalpean, elkarren ondoan etzatea, gorputzak hainbeste handikeria gabe ederki gozaraziz, batez ere **aroak** laguntzen eta urtaroak belarraren berdetasuna loreztatzen duenean. Xabier Amuriza

Baina, idazten baino lanean zerraikan: **aroa** ederrera ari zen goizetan ardiak landara gidatzen zituen eta eskolarik ez zuen egunetan, anai-arrebekin bat, aihena estekatzen zuen, lerroz lerro eta lairaz laira. Itxaro Borda

Udan eta **aro** ederrarekin, amen batean apaindu eta karrikaratuko ginatekeen hirurak, aitaren balentria ospatzera. Aingeru Epaltza

India hirutan zatitua da, India Handia izigarri beroa den lekua, India Ttipia **aro** epeleko lekua. Aurelia Arkotxa

Etengabeko **aro** ederra oparituko zion laino mihi arinetan zaldizka. Itxaro Borda

Aroa ez delarik hain ona, ez duelarik aski bero egiten, bertze joko bat badute. Aurelia Arkotxa

Haize mina dabil, dotorea **aroa** etxean utzitako euri zirin, narras, lorrinaren aldean. Iñigo Aranbarri

---

aroi *izond* joera.

Hala ere, nolabaitekoa izanda ere, eskerrak damaizkiot zeruari bihoz-bera; eta errukiorra eman didalako, inori kalterik ez eta guztiei on egiteko **aroia** duena. Patxi Ezkiaga

---

arol 1 *izond* barnean hutsune asko duena, trinkoa ez dena, harroa.

Eta zer guztiok hilkorrak direnez gero, gai malguak bigun, hauskorrak xehagarri eta **arolak** gorputz xumeko baitira, denek lehenkietatik at behar dute. Xabier Amuriza

«Hauxe egur puska **arola**!» esan eta sutara jaurti du. Berria - Kultura

2 *hezur arol* *(corpusean ez dago; ETCn 18 agerraldi)*

Sare horrek substantzia arola edo **hezur arola** osatzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azkenik, hezur zapalak edo lauak ditugu, horien kasuan, hezur trinkozko bi geruza nahiko lodi eta bien artean **hezur arol** gutxi agertzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi kasuetan, hasieran sortzen den hezurra trabekularra da (**hezur arol** primarioa). ETC-zientzia, zuzenbidea

Erdiko belarriaren aurreko muga entzumen-tronpa da eta atzealdea apofisi mastoideoko **hezur arola**. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aroma *iz* usain ona.

Sagardo berriak gorputz gehiago eta fruitu helduen **aroma** duela. Berria - Euskal Herria

2002ko sagardoak zitrikoen (arabi sagarraren eta limoiaren) **aroma** izan zuen nabarmen. Berria - Euskal Herria

Gertakien arima eta **aroma** hobeki eskuratu ahal izaiteko. Joan Mari Irigoien

Zeren gertaki bakoitzak gorputz bat baitu, baina baita arima bat ere, eta xehetasunak dira gorputza, eta **aroma** arima. Joan Mari Irigoien

Historia haren gorabehera printzipalak kontatu zizkidan, ez xehero baina laburzkiro, historia haren **aroma** usaintzeko modua izan nezan; dasta ahal izan zitzan gure txikiak bizitzaren aro guztiak, eta aro bakoitzeko **aromak** usaindu! Joan Mari Irigoien

Eta bazkari edo afari denboran, amatxik, maiz aipatzen zituen bere arrosa, julufria, hortentsia, gatulili, dalia eta bereziki maite zituen **aromak**. Daniel Landart

---

aromaterapia *iz* aromen bidezko terapia.

Miarritzen honako gaiak landuko dituzte, besteak beste: euskal diasporaren egoera, **aromaterapia** eta sendabelarrak, demokrazia parte-hartzailea, eskubide sozialen aldeko mugimendua Euskal Herrian, Islam politikoa eta globalizazioa, kazetariaren eguneroko lana, landagunegintzaren hirigintza, [...]. Berria - Euskal Herria

Nazioartea, ekonomia, pedagogia eta **aromaterapia** sailek erakarri dute ikasle gehien aste osoan. Berria - Euskal Herria

Aromaterapia emanaldi bat (Landare esentzien erabilpena) eskaintzen dautzuete udaberria aintzin, organismoaren garbiketa on bat egitea eta uda aintzin larrua prestatzea. Herria

Aratsaldeko 15.30 etan, hitzaldia: "Osagarria eta **aromaterapia**", eta 17 etan mahain-erakusketa: "Osagarria zaindu eta artatu landareekin". Herria

---

aromatiko 1 *izond* aroma duena.

Kandelak eta argizari mota asko zituzten, bestalde, hainbat ontziri itsatsiak; baita girogarriak ere -erretxinak eta substantzia **aromatikoak**-, Bibliako edo Koraneko hainbat pasartetako lurrin gozo eta hitz are gozoagoak oroitarazten zizkietenak, sandalo, intsentsu eta mirra. Joan Mari Irigoien

Bost gazteak Stephen's Green-etik zehar paseoan joan ziren ke-lainoxka **aromatiko** batean bildurik. Irene Aldasoro

2 kimikan, konposatu organikoez mintzatuz, molekulan bentzeno nukleo bi edo gehiago dituena.

Horrek poliziklo hidrokarburo **aromatikoak** (PH) sortzen ditu, eta horiek "oso agente kutsatzaile arriskutsuak dira". Berria - Euskal Herria

3 *belar aromatiko* *(corpusean ez dago; ETCn 22 agerraldi)*

Saltsak, espeziak eta **belar aromatiko** zaleak dira, eta postreak dira euren espezialitatea. ETC-prentsa

Aroma finak eta delikatuak, fruitu lehorren eta **belar aromatiko** eta tabako beltzaren ukituarekin. ETC-prentsa

Harrigarriak biak, baina batez ere caiñoz egindakoa, eukaliptoa, **belar aromatikoak** eta baso aromekin. ETC-prentsa

Hala ere, **belar aromatikoak** har ditzake, horrek ez die tentsioa altua dutenei kalterik egiten eta janariaren zaporea handitu egiten du. ETC-prentsa

Flabonoideak, azido fenolikoak eta abar: Plater arrunten lagungarri izan daitezkeen **belar aromatikoetan** daude antioxatzaile indartsu hauek: erromeroan, te berdean, babarrunei gehitzeko kuminoetan... ETC-prentsa

Janaria desiragarriagoa izateko ozpina, limoia, tipulina, baratxuria, **belar aromatikoak**... erabili. ETC-prentsa

Horretarako, gatza erabili ordez, otorduak espezia, **belar aromatiko**, limoi-zuku, baratxuri, tipula eta antzekoekin maneiatzea gomendatzen da. ETC-prentsa

Elkarrekin bizi dira mahasti txikiak, arrano, erbi, orkatz, basurde zein arte, haritz eta **belar aromatikoekin**, harmonia ederrean. ETC-prentsa

Gehienak **belar aromatikoak** dira, hala nola ezkaia eta sarpoila. Europako, Ipar Afrikako eta Asiako eskualde epeletakoak dira, jatorriz. ETC-entziklopedia

4 *eraztun aromatiko* *(corpusean ez dago; ETCn 22 agerraldi)*

Kontuan hartu **eraztun aromatikoak** kontserbatu egiten direla, C eta H bezala. ETC-zientzia, zuzenbidea

Landareek fenol talde bat duten konposatu sekundario ugari ekoizten dute (**eraztun aromatiko** batean hidroxilo talde funtzional bat duen taldea da fenola). ETC-zientzia, zuzenbidea

PAHak elkartutako **eraztun aromatiko** bik baino gehiagok osatutako molekulak dira, oro har, erreketa bukatu gabe baten edo materia organikoaren pirolisiaren ondorioz sortzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, **eraztun aromatikoak** dituzten konposatuetan aurresan daiteke, erradikal elektroerakargarriak (NO_2) eraginkortasuna murrizten dutela eta eraztun aromatikoa eta

karbamatoaren artean bereizle (CH2) bat sartzeak ere eraginkortasuna nabarmenki gutxitzen duela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konposatu aromatiko konplexuak ere existitzen dira, eta beren ezaugarri esanguratsuena **eraztun aromatiko** sinpleen arteko lotura da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hidrokarburo aromatikoak, areno izenez ere ezagutuak, gutxienez **eraztun aromatiko** bat duen hidrokarburoa da. ETC-entziklopedia

Ordezkapen aromatiko nukleozalea ordezkapen-erreakzio bat da zeinetan nukleozale batek **eraztun aromatiko** bateko talde bat, haluro bat adibidez, desplazatzen duen. ETC-entziklopedia

5 *hidrokarburo aromatiko*

Horrek poliziklo **hidrokarburo aromatikoak** (PH) sortzen ditu, eta horiek "oso agente kutsatzaile arriskutsuak dira». Berria - Euskal Herria

6 *hidrokarburo aromatiko polizikliko* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Egitura hau espazioko bi norantzetan molekula biziki luzetzat ere har daiteke, hau da, grafeno deituriko **hidrokarburo aromatiko polizikliko** molekula lau familia baten muturreko kasua izango litzateke. ETC-entziklopedia

Espainiako Gobernuak partida batzuetan **hidrokarburo aromatiko poliziklikoa** bazela baieztatzean eman zien aipatu olioa behin-behineko kentzeko agindua erkidego autonomoei. ETC-prentsa

Fuelak benzoalpirenoa edo benzofluoramentoa bezalako **hidrokarburo aromatiko poliziklikoak** ditu, eta horiek minbizia eragin dezakete. ETC-prentsa

Lurzoruan eta lurpeko uretan metalak dira kutsatzaile ohikoenak; sarritan agertzen dira olio mineralak, **hidrokarburo aromatiko poliziklikoak** eta konposatu organiko aromatiko hegazkorrak ere. ETC-prentsa

Oraindik ere aurki daitezke osagai toxiko eta arriskutsuak kostaldeko maskor biko eta sedimentuetan: metal astunak eta **hidrokarburo aromatiko poliziklikoak** (PAH). ETC-prentsa

Eta pinturek, isolatzaileek, edergarriek, kableak estaltzeko plastikoek eta beste mila gaik berez daramatzaten produktuak, gehi horiek berotzean sortutako bestelakoak: **hidrokarburo aromatiko poliziklikoak**, PCBak, TBTak... ETC-prentsa

Hidrokarburo aromatiko polizikliko handiagoen erregio-selektibotasuna aurresaten laguntzen dute erresonantzia-egiturek. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *konposatu aromatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **64** agerraldi)*

Zenbait **konposatu aromatiko** prezisioz identifikatzeko abileziak nire balorazio profesionalak hobetzeko aukera eman dit, neure buruaz seguruago sentitzeko eta ardo dastaketa analitikoetan hobeto lan egiteko. ETC-prentsa

Aminoazidoak, gantz-azidoak, azido organikoak, azukreak, base nitrogenodunak, **konposatu aromatikoak** eta beste hainbat konposatu organiko erabil ditzaketen bakterio mota ugari dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haren gain eragina duten produktu bakarrak zetonak, zenbait **konposatu aromatiko** eta kloro hidrokarburoak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, jakiak egosketa-ingurunean dauden **konposatu aromatikoak** xurgatzen ditu, eta zapore eta usain gehiago dauzka. ETC-zientzia, zuzenbidea

Halako estres-baldintzetan, **konposatu aromatikoak** sintetizatu behar dira ehuna berrindartzeko eta babesteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azukrearen karbonilo taldearen eta proteinaren amino taldeen artean gertaturiko kondentsazio erreakzio honetan propietate antioxidatzaileak dituzten **konposatu aromatikoak** sortzen direla ikusi da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esperimentaziotik abiatuta egin da, gaur egun ere ez dagoelako kultibo pururik eta sortzen diren **konposatu aromatikoak** ez direlako zehatzak. ETC-entziklopedia

Beraz, **konposatu aromatiko** sinpleak lortzeko, lignina degradatzea beharrezkoa izango da. ETC-entziklopedia

8 *ordezkapen aromatiko elektroizale* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Ordezkapen aromatiko elektroizale jakin baten produktu zehatza zein den aurresateko, sor daitezkeen bitarteko kationiko guztiak formulatu, eta horri eragiten dioten indar egonkortzaile eta desegonkortzaile guztien garrantzi erlatiboa zehaztu behar dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ordezkapen aromatiko elektroizalea zaila da, baina ordezkapen aromatiko nukleozalea ohikoagoa da. ETC-entziklopedia

9 *ordezkapen aromatiko nukleozale* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Erreakzioari **ordezkapen aromatiko nukleozale** deritzo. ETC-zientzia, zuzenbidea

Triazinak konposatu aromatikoak diren arren, erresonantzia-energia askoz txikiagoa dute bentzenoak baino. Ordezkapen aromatiko elektroizale zaila da, baina **ordezkapen aromatiko nukleozalea** ohikoagoa da. ETC-entziklopedia

---

aromatizante *iz* aromatizatzen duen gaia.

Morfina, kokaina, kloroformo urtua, alkohola eta **aromatizantea**, dena nahastu eta ondo eragina. Joseba Sarrionandia

---

aromatizatu *izond* aromatizatzen duen gaia ezarri zaiona.

Munduko fruitu goxoenak zituzten arbolak eta ere munduko perfume zoragarrienak dituzten belar **aromatizatuak** zituen han landatu. Aurelia Arkotxa

---

arotz 1 *iz* zurgina; metalak, batez ere burdina, lantzen dituen pertsona.

Nork du eraikitzen sendoago, harginak, ontzigileak eta **arotzak** baino? Juan Garzia

Arotza zen ofizioz, eta oso bastoi politak egiten zituen. Joan Mari Irigoien

Ganaduzale, nekazari, eskulangile, **arotz**, zurgin eta tenpluetako zerbitzari dira. Gotzon Garate

Jende asko izan da Jose deunaren zaindaritza nahi izan duena: hor daude **arotz** eta zurginak. Pello Zabala

Lau hego izaten dituzte, nerbio txikiz egindako egituran, **arotz** baten ordez altzari-apaintzaile batek egindako gurtetxe afiligranatua balitz bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arotzak eta zurginak mobilizatzen hasi zirela, eta orain obispoak. Inazio Mujika Iraola

Arotza, iltzeak ahotik kendu, amantaletik txirbila astindu eta zain geratu zen, bezeroak bueltan zekarren aulkiak zer matxura edo zer tatxa izango ote zuen igarri ezinik. Harkaitz Cano

Ofizioz **arotza**, gazterik sortu zitzaion musikaren aldeko afizionea, odolean zeukana, bere aitzinekoengandik ukana. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eskolako maistrak ere dantza egin zuen, eta **arotza** okindegira joan zen ogitara, eta okina aroztegira ohol baten bila. Bernardo Atxaga

Har dezagun **arotz** bat, adibidez: arbola egoki bat botatzen du, zuritzen du trebeziaz, behar bezala landu eta bizitzako beharretarako tresna bihurtzen du. Elizen arteko biblia

Aita **arotza** du eta sarritan laguntzen dio aroztegiko lanetan. Patxi Zubizarreta

Berdin **arotz** eta etxegileak, gau eta egun lanean dihardutelarik. Elizen arteko biblia

Udaberrian kakamarloak bezala agertu ziren, auskalo nondik etorriak, harginak eta sokagileak, harri-pikatzaileak eta zurginak, **arotzak** eta kisuginak, beren maisu, peoi, ofiziale eta ikastunekin. Aingeru Epaltza

Ontzia gotortzeko lanetara, berriz, hantxe etorri zitzaizkigun **arotzak** eta errementariak. Edorta Jimenez

Lanerako harginak eta **arotzak** hartu zituzten. Elizen arteko biblia

Zaltegiko burdinazko tresnak ikusi nituen mahai baten gainean, jauregiko **arotzak** bertan utziak: mailu, iltze eta ziri. Joan Mari Irigoien

Jakinarazi zion prest zegoela edozertan laguntzeko; bere orgagile, **arotz** eta forjari guztiak eskaini zizkion. Jose Morales

Arotzak bere lanean urte asko daramatzan arren, oraindik ere harritu egiten da zuraren begiekin. Harkaitz Cano

Plazaren erdian, **arotzak** jo eta ke ari dira urkamendia jasotzen. Anjel Lertxundi

Oro har, **arotzek** eta mekanikoek baino gehiago hitzegiten dute beren lanaz, ukitu esoterikoak erabat ahaztu gabe. Bernardo Atxaga

Arotzek zerra batekin kendu behar izan baitiote ateari helduleku biribila. Harkaitz Cano

Hoa **arotzarengana** eta gurpiletan irristagailuak ipintzeko eskatu -esan zuen Txitxikovek. Jose Morales

Asteak aurrera joan ahala, eskailera bat eginarazi zion kapitainak ontziko **arotzari**, oihalaren erdiko aldean eroso idatzi ahal izateko. Harkaitz Cano

Arotz bikaina zen! Jose Morales

Gaur gauean **arotz** klandestino bat etorriko da; gure Frankfurteko oheen zuraz atalaga batzuk egingo ditu. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Gaurko hiletografoek ezagutzen duten sarkofagoa **arotz** lana besterik ez da. Bi lagunen presentziaz jabeturik, **arotz**-lanean ari zen gizona oholtza gainetik jaitsi da jauzi eginez. Xabier Olarra

Orain gizonak **arotz**-lanetan jarri behar! -halaxe kexatu zen Basurtokoa, diruen kutxa besoetan. Edorta Jimenez

Nahi baitzituen klarineta jotzeko eriak edo behatzak zalu atxiki, **arotz** lanetik urrundu zen guti edo aski. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Joanesek, bera ere hartaz oharturik edo, besotik oratu zion, eta sotora egin zuten biek, Mateoren **arotz**-zokondora, edo, beharbada, sagardo upeletara. Edorta Jimenez

Gainera, barruko paretak **arotz**-lan finez edo iztukuz egindako erlaitzez inguratu beharko dira altueraren erdiraino. Santiago Iruretagoiena

Adrian lanean ari zen **arotz** mahai baten aurrean makurtuta, kinke baten argitan. Bernardo Atxaga

Arotz saga erraldoiak badira, haiek euren gurasoengandik ikasi eta seme-alabei erakusten diete ogibidea belaunaldiz belaunaldi. Harkaitz Cano

Zure aberastasunak, merkantziak eta salgaiak, zure marinel eta lemazainak, zure itsas **arotz**, merkatari eta gerlariak, daramatzazun ontzilari guztiak, itsasoaren erdian urperatuko dira zeu hondoratzean. Elizen arteko biblia

Ganaduzale, nekazari, eskulangile, **arotz**, zurgin eta tenpluetako zerbitzari dira. Gotzon Garate

3 ***arotz aulki*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Bi soldadu sartu ziren eskalapoigilearen dendan, aurreko gerrako elbarritu bat, une hartan bere **arotz-aulkian** lanean ari zena. ETC-literatura, saiakera

Batek dirua nahi zuen, besteak suhi bat, hirugarrenak **arotz aulki** berri bat, eta horrela erantzunez joan ziren guztiak. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arotz bat** (4); **arotz baten** (4); **arotz lanean ari** (4)
> **arotza ere** (3); **arotza zen** (6); **iturengo arotza** (3); **kaleko arotza** (3)
> **arotzaren eskuak** (4)

---

arotzeria **1** *iz* arotz lana; arotz lana egiten den tokia.

Etxe horiek sarrera-gela zoragarriak izaten dituzte eta duintasunez egindako ate egokiak, eta peristiloetako portikoak iztukatuta eta zarpeatuta egoten dira, eta **arotzeria** finezko kasetoiekin apainduta. Santiago Iruretagoiena

Sabai garaiko gela zen, **arotzeria** zahar, ilun eta astunekoa, zilarrezko giderrak eta zizareen sigi-sagak gogora ekarrarazten zituena ezinbestean. Mirentxu Larrañaga

Idazteko epea eta astia bere **arotzerian** hartzen ei zituen; santugintzako zintzela eta mailuaren ordez, papera eta luma harturik, bere lantokia poesia-tailer bihurtzen zuela. Berria - Kultura

2 ***arotzeria metaliko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Estalkiaren egitura ez da aldatu, baina etxebizitzek ganbararen zati bat hartzen dute. Baoetan **arotzeria metalikoa** jarri da. Fatxada zarpiatu eta pintatu egin dute. ETC-entziklopedia

---

arotzeritza *iz* arotz lanetan aritzea.

Arotzeritzan aritzen zela dirudi, San Markok seigarren kapituluan adierazten bide duenez: "Hau al da, gero, arotz hura?". Patxi Altuna

---

arotzia *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi) iz* arotzeria.

Jonek **arotzia** eta ebanisteria ikasi zituen, eta Joycek ikastetxeetan musika irakasteko titulua atera zuen. ETC-literatura, saiakera

Noblezia hidalgia egingo badau, edo egin beharko ditu papel faltsuak, edo egin biarko dau prueba egiazkua, nola bere antepasauren bizi izan zan ez argintzan, ez **arotzian**, ez zapateritzan [...]. ETC-prentsa

Dakarren **arotzia** ikasi nuen, arrantzaleentzat egiten genuen lan, baina salmenta eskasa zen. ETC-prentsa

Baserriko **arotzia** eta itxiturak ez ziren estankoak, barrenean etengabe berriztatzen zen airea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hormak, habeak eta teilatua bera Burdin Aroko **arotzia** - eta ingeniaritza-ezagueretan oinarritutako esperimentazioaren emaitza dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Itxura dotorea eta hutsarteak dituzten **arotziak** daude, batez ere beheko solairuko arkuetan. ETC-entziklopedia

Burdinurtuzko zutabeek eta ate eta leihoetako **arotziak**, aretoetarako sarrerako ardatz bertikaleko ate birakariek esaterako, "Art Nouveau" itxura ematen diete harrera lekuari eta aretoei. ETC-entziklopedia

Beste fatxadetako eta bao guztietako **arotzia** eta burdineria mende honetakoak dira. ETC-entziklopedia

---

arozgintza *iz* arotzaren langintza. ik **arotzeritza**.

Ni **arozgintza** ikasten hasi nintzen, eta maisuak zerra edo marrusketa ukitzen ere ez zidan utzi sekula. Koro Navarro

Eta oraindio gure **arozgintzan**, zenbat ari diren beltz haien odoleko euskaldun! Patziku Perurena

---

arozgo *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* arotz lanbidea.

Delako arotz hori zen Albert Uhalde, Makearra, Alduden **arozgoan** arizana, 2005ko urtean zendua dena 81 urtetan. ETC-literatura, saiakera

Ez zitekeen urte guziko lanik, bere **arozgoko** lanaren artetik egiten zukeen aduanako lana. ETC-literatura, saiakera

---

aroztegi *iz* errementariaren lantegia.

Lehenago, burdina egiten zelarik Luzaiden, anitz **aroztegi** ba omen zen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Errotak eta bolak ez ziren geldirik egoten, oihal-fabrikak, **aroztegiak** eta irundegiak etengabe aritzen ziren lanean. Jose Morales

Aroztegia zen denbora hetako bil-tokia, ostatuaz kanpo. Herria

Goritutako burdina sutegitik atera, ingudean jarri, mailuaz jo eta burdinatik **aroztegi** oso-osoa betetzeko adina txinparta atera ziren. Fernando Rey

Egur bila hasi zen herriko eta inguruko **aroztegi** guztietan. Anjel Lertxundi

Aitatxiren aitak bazuela **aroztegi** bat Txapitel errekako gune horretan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aroztegian aritzen zen forja-lanean bere bost semeekin, ezpata ederrak egiten, urrezko apaingarridunak, aho-zorrotzak, hautsezinak. Fernando Rey

Guztira 24 langile dira **aroztegian**, eta ilunabarreko zazpietan irteten dira. Berria - Kirola

Aroztegi batean irabazten zuen eguneroko ogia. Berria - Kultura

Berrogeita hamar urte eman ditut **aroztegian**. Unai Elorriaga

Aroztegian, Grabenstrasse karrikan, haur bat dabil zerrautsarekin jolasean, etxeak marraztu eta putz eginez desegitera. Harkaitz Cano

Arotza okindegira joan zen ogitara, eta okina **aroztegira** ohol baten bila. Bernardo Atxaga

-Oraintxe esango zioat Morgani -arotzaren emazteak erantzun zuen **aroztegiko** mailu eta zerren ilunpe artetik. Koro Navarro

Gaua zen eta **aroztegiko** atetik txinparta-hodeiak saltatzen ziren iluntasunera. Fernando Rey

Arotza okindegira joan zen ogitara, eta okina **aroztegira** ohol baten bila. Bernardo Atxaga

Aroztegi zaharraren estalpean sartu ginen, eta han zeuden lasto baletako baten albora joan nintzen. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aroztegiko atetik** (3)

---

arpa ik **harpa**.

---

arpan *iz* bi muturretan eskutokia duen zerra handia. ik**trontza**.

Beste zernahi tresna: sega, segu kotxu edo opotxa, zerra, **arpana**, haizkora, mailu, trukes eta gaineratiko! Herria

Beste batzuk **arpanaz** oholak ateratzen eta trabesaz piezak lantzen hasiko dira. Berria - Kultura

Trontza edo **arpan** berrien kontua izan da azkenaldian hizpide. Berria - Kirola

Proba konbinatuetan bost kiroletan dihardute: lokotx-biltzen, txinga eroaten, **arpanean**, zaku lasterketan eta korrika. Berria - Kirola

---

arpanlari *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi) iz* trontzalaria.

Gizonezkoen Lehen Mailan berriz **arpanlari** hauek ariko dira txapelaren bila: Aitor Esnaola-Igor Esnaola, Andoni Rezabal-Aitor Roteta, Josetxo Barberena-Iñaki Barberena, Oier Aizkorbe-Jose Luis Cano eta Mikel Bertiz-Xabier Urrutia. ETC-prentsa

Arpanlariek 10 epai eman behar zizkioten 45 ontzakoari. ETC-prentsa

TRONTZAOstiralean jokatu zen Nafarroako Bigarren Mailako **Arpanlari** Txapelketa eta Julen Txoperenak eta Iñaki Portu igantziarrek irabazi zuten 5.44-ko markarekin. ETC-prentsa

Nafarroako hiru **arpanlari** txapelketa jokatuko dira gaur Iruñean. ETC-prentsa

Urriaren 1a - Jose Ignazio Orbegozo, "Arria II.a", gipuzkoar aizkolaria, gizon probalaria, txingalaria, **arpanlaria** eta segalaria. ETC-entziklopedia

Trontzan diharduenari trontzalari edo **arpanlari** deritzo. ETC-entziklopedia

---

arpe ik **harpe**.

---

arpegi ik **aurpegi**.

---

arpegio *iz* akorde bat zeinetan notak bat besteearen ondoren jotzen baitira.

Atzean utzi nahi nituen **arpegioak** eta eskalak, digitazioak, akademia eta pianoko andereñoa. vibrato zabala, goi tesitura zailean erraz zebilena, soinua garbia, afinazio eta fraseatze txukuna zati lirikoetan; **arpegio**, trino, mordente edo hiru hariko akordetan artista. Anjel Lertxundi

Gitarrajolea, atzealdeko itzaletan ia desagertuta, akorde eta **arpegio** batzuk tartekatzen hasi da leunki, bestearen jarduna nondik joan daitekeen igarriz agian, saioa girotzeko borondatez. Iñaki Iñurrieta

Hasierako Allegro-aren bi gaietan eta dinamika desberdinak erabiliz, pianoak jorratzen duen zabalkundea ederki bete zuen **arpegioen** bitartez. Berria - Kultura

Berriro ere, Uruburu-eneko zuhaztian barrena heldu, Debussy-ren "Clair de Lune"ren **arpegio** magikoak entzun ditut. Txillardegi

Eskala bizkor eta **arpegio** koloretsuen tirania kontrastetsuak, indarkeria zartatsu batetik lirismo guztiz barne-bildu batera naturaltasun osoz jauzika, irentsiak zituen Saint-Saënsen oroitzapenak, baina asmatu ezinik segitzen nuen nor zitekeen mutur kontrajarri haien arteko haustura erabatekoari barne-batasun estetikoa ere guztiz erabatekoa ematen zion musikaria. Anjel Lertxundi

Eskarmentu handiko Emma Schmidt piano jotzaileak, partiturarik gabe, ziurtasuna adierazi zuen **arpegio** eta akorde konplexuz beterik dagoen horretan. Berria - Kultura

Dagoeneko isildu da gitarrajolea, bere akorde-**arpegioak** lekuz kanpo zeudela oharturik. Iñaki Iñurrieta

Arpegio batzuk markatu zituen atzamarrekin mahaiaren ertzean, Santos itzuli arte. Josu Landa

---

arpeu *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* abordatzeetarako gakoa; aingura txikia.

Eta baita **arpeu** herdoildu bat ere. ETC-literatura, saiakera

Tyndallekin izan zuen norgehiagoka ez zen mendi igoeraren alde fisikora mugatu, konpetizioa berrikuntza teknikoetara ere hedatu zen: Tyndallek eskailera bat ekartzen bazuen, Whymperrek **arpeuak** edo suhiltzaileen eskailerak ekarriko zituen. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arpidetza ik **harpidetza**.

---

arpilaketa *iz* arpilatzea, hiri, etxe edo kideko bat bere ondasunez biluztea indarkeriaz eta harrapaka.

Troiako **arpilaketaren** izugarrikeriak gainditu egiten dituzte Atreoko Etxeko famili feudoaren izugarrikeriek. Iñaki Mendiguren

Horazio eta Virgilioren aroa baino laurehun urte geroago, Alarikok Erroman egindako **arpilaketak** jada bukaera iragarri ondoren, oraindik Rutilio Namaziano galiar poeta Erromaren hilezkortasuna erronkari aldarrikatzen aurkitzen dugu. Iñaki Mendiguren

Gloriaz ospatu zuten garaipen hura beren **arpilaketa** eta harrapakinekin, eta ateratako diruekin portiko pertsiarra eraiki zuten hiritar guztien adorea eta ekintza ospatzeko eta, garaipenaren oroigarri bezala, ondorengo guztientzat gordetzeko. Santiago Iruretagoiena

---

arpilatu, arpila(tu), arpilatzen du *ad* hiri, etxe edo kideko bat bere ondasunez biluzi, indarkeriaz eta harrapaka. ik **harrapakatu**.

Herria **arpilatu**, soro eta baratzeak zeharo hondatu, eta, okerrago oraindik, hankazgoratu egin zizkieten naziek bizimodu eta ohiturak. Xabier Olarra

Erromatarrek hainbat hiri indartsu **arpilatu**, eta berenera eramanak zituzten hango aberastasunak. Iñaki Iñurrieta

Bizigune haiek guztiak, atzerritar poloniarrek sortuak haien izenei erreparatuz gero, **arpilatu** eta erraustu egin zituzten gupidarik gabe. Karlos Zabala

Asiriarrek berek ere beste nazio aberats batzuk **arpilatu** zituztela, gerora beste nazio batzuek beraiek **arpilatu** zituzten bezala. Iñaki Iñurrieta

Maiordomoek, jaunei eraso egitera ez baitziren ausartzen, **arpilatu** egin zituzten elizak. Iñaki Iñurrieta

-Niretzat hiriak gizon doilorrek eginak dituk, eta gizon indartsuek **arpilatzeko** balio ditek -esan zuen Martinek berotuta. Koro Navarro

Aitortzen ziela hiria **arpilatzeko** eskubidea, aztura eta usadioen arabera, koroari zegozkionak eta gurutzatuei agindu zitzaizkienak alde batera utzita. Jon Alonso

Aspaldi zaharretik, konboi guztiak **arpilatzen** zituèn Ireland ospetsuaren bekaizti zen Kid; promes egin zion lord Bellamont-i haren txalupa atzeman eta bere kideekin ekarriko ziola bertan guztiak hilarazteko. Juan Garzia

Jende ona gara gu, ez dugu ezer **arpilatzen**, ez dugu inor erailtzen. Karlos Zabala

Harrapatzen zuen guztia **arpilatzen** zuen, errausten zuen, men egiten zutenak armadan sartzen zituen, men egin nahi ez zutenak preso hartzen. Karlos Zabala

Joxean Alustizak adierazi zuenez, etorkizunaren eta garapenaren izenean, "betiko jauntxoek" eta "interes ekonomikoek", ehunka milioi euroko negozioa aurreikusiz, "Gipuzkoa **arpilatzen** " ari dira. Berria - Euskal Herria

Kontua da txarrean etxeratu nintzela, eta nire sabela alaitzeko jogurt triste bat ere ez zeukala niretako hozkailu **arpilatuak**. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arpilatu zituzten** (5)
> **arpilatzen ari** (3); **guztiak arpilatzen** (3)

---

arpilatzaile *iz* arpilatzen duen pertsona.

-Espero dut nire semea lapur edo **arpilatzaile** baino zerbait gehiago izatera iritsiko dela -esan zion Malfoy jaunak hotz. Iñaki Mendiguren

Honek inflazio hondagarria eragin zuen, eta mazedoniar **arpilatzaileek** Pertsepolisen eta espainiar **arpilatzaileek** Cuzcon egindako bekatuak joniar eskulangileek ordaindu zituzten Zikladetan eta nekazari alemanek Suabian. Iñaki Mendiguren

Monclarrek kontuak eginen zituen: **arpilatzaileak** 4.500 izan beharrean 5.000 izateak ez zuen hiriko biztanleen zorigaitza makurragotuko. Aingeru Epaltza

Aro Heroikoa *in vacuo* aurkezten dute, ustekabeko erreferentziaren bat bakarrik eginez gorpu ahaltsuari, zeinen gainean ari baitira beren sarraski-festak egiten bardoaren putre-heroiak, "hiri-**arpilatzaileak"**, beren buruez harro esaten duten bezala. Iñaki Mendiguren

---

arpilatze *iz* indarkeriaz eta harrapaka, etxe, hiri edo kideko bat bere ondasunez biluztea.

Arranoaren hegoak Irakeraino iristen dira egun, eta **arpilatze** horrek ondorio ezin txarragoak ekar ditzake. Berria - Mundua

Biltzar batean agertu zuenez, Bagdad eta beste hainbat hiriren erorketaren ondoren **arpilatze** "ikaragarriak" jasan behar izan ziren tropa faltaren ondorioz. Berria - Mundua

Albuinok Rosamundarengatik sentitzen zuen desira asegabeak gepidiarren suntsidura eragin baldin bazuen, sinesgarria da Troiaren **arpilatzea** Paris-ek Helenarengatik sentitzen zuen desira asebetetzeak eragin zuela. Iñaki Mendiguren

Matxinoak Port-au-Princera iristear direla, kontrolik gabeko ehunka bandak **arpilatzea**, xantaia eta indarkeria dute ekinbide. Berria - Mundua

Historia monastikoaren mila urteak, San Benediktoren garaiaren eta "Erreforma" delakoan eliz erakundeen **arpilatzearen** artekoak, ezagunak dira, eta ez dago sinetsi beharrik idazle protestante eta antikristauen alegazio guztiak. Iñaki Mendiguren

---

arpilera ik **arpillera**.

---

arpillera *(orobat **arpilera** g.er.) iz* zuntz lakarrez eginiko oihala.

Ontziak garbitu gabe / hiru egunetan edo, / **arpillera** koipetsua, / gatz-hondarrak, / Pako Aristi

Satan, iz. Huts deitoragarri bat, kreatzaileak egina, zeinak, damuturik, **arpileraz** eta errautsez gorputza estali baitzuen. Xabier Olarra

Belaunetako hauen gainean belauniko, baldekada urak hartuta, **arpillera** zatiak eskuetan, 70x50 metro inguruko patioa garbitu behar zenuen. Jokin Urain

Colchón Flex", esan zuen, **arpillerazko** zaku batzuk lurrean utziaz. Bernardo Atxaga

Leihatila itxita duenez ez dauka ezer entzuterik; gainera, bizkarra eta burua babesteko jarri duen **arpillerazko** zakuak ia aurpegiaren erdia estaltzen dio mutilari. Pello Lizarralde

Emakume motz gazte batek, **arpillerazko** zaku batekin, diosal egin zion. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arpillerazko zaku** (3)

---

arpin *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* zain-belarra.

Ezpata-plantaina ("Plantago lanceolata") plantain, zainbelar edo **arpin** barietatea belarkara bizikorra da. ETC-entziklopedia

Plantain handia ("Plantago major") plantain, zainbelar edo **arpin** barietate belarkara bizikorra da. Landare hau jatorriz Europakoa da, kolonietara hedatu zutena ere bai. Belar txarra da nekazarien artean. ETC-entziklopedia

Plantain, zain-belar edo **arpin** Plantago generoko landare askoren izen generiko arruntak dira. ETC-entziklopedia

---

arpoi *iz* arrain handiak eta eskuarki baleak harrapatzeko tresna, zurezko gider luze batez eta burdinazko punta kakodun batez osatua.

Arrantzarako **arpoi** txikiak, edota amu lodiak kizki moduan. Joanes Urkixo

Orduko bederatziehuneko lastertasunean, harrapakinari sekula huts egiten ez dion **arpoi** kolpe harrigarri hori emango diote. Josu Zabaleta

Arpoia zirga gogor honi loturik doa. Joseba Sarrionandia

'Arpoi jaurtigailua da,' esango du Swen Foyn horrek. Joseba Sarrionandia

Ned Land **arpoi** -jaurtitzaile ausarta, txibia erraldoien artean egokituko dira. Imanol Zurutuza

---

arpoilari *iz* arpoia jaurtitzen duen marinela.

Etxe handi baten aurrean gelditu nintzen armarriari begira, sei zazpi arrantzaleren irudiak ikusten ziren balea harrapatzen, **arpoilaria** ontzian zutik oraindik arpoia jaurti ondoren. Joseba Sarrionandia

Arpoilariak lehenengo umeari jaurtia zion arpoia. Joseba Sarrionandia

Balea setiatu bati aurre egitera doan **arpoilari** baten su amorratua zeukan begiradan. Anjel Lertxundi

---

arpoitu, arpoi(tu), arpoitzen *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)* **1** du *ad* arpoiaz jo.

Salbuespenez ehizan bertan ere lagundu dezakete, zetazeoak inguratuz eta **arpoituz**, beharrezkoa baldin bada, araudi honek agintzen duenari jarraikiz betiere. ETC-literatura, saiakera

Kopetako ebakia Parisen egin zuen; marrazoak **arpoitzen** ibili zenetik, markatuak ditu bernak, eta gerrako metraila tiro bat dauka belaunean. ETC-literatura, saiakera

Kontatzen zuen adjektibo doia **arpoitu** zain, pikadurako tabakoa erretzen zen garaikoa izaki bera, zigarroak egiten ematen zuela denbora. ETC-prentsa

Eta diot nik, paperean iltzatutako hitzek ezin badute ufada hori **arpoitu**, are alferrikakoagoak izango direla airera jaurtitako hitzak, zehaztasunetik hain urrun dauden baina memorian irauteko eginak diruditen berba iheskorrak. ETC-prentsa

Aurkitutako lehenengo marrazoa 4,6 metrokoa zen. Harrapatua eta **arpoitua** izan zen Hegoafrikako Table Bayko kostaldean, 1828an. ETC-entziklopedia

Ugaztun espezie txikiak **arpoitzeko** makila zorrotzak sortzen ere aurkitu da. ETC-entziklopedia

2 (era burutua izenondo gisa)

Alotzek birao beldurgarria jaurti du, tuneleko oihartzunean munstro **arpoitu** baten ulua iruditu zaidana. ETC-literatura, saiakera

---

arra **1** *iz* esku zabalduan, hatz lodiaren eta txikiaren punten arteko bitartea, luzera neurri gisa erabilia. ik**arrabete**.

Arra: zabalduriko eskuko hatz lodienaren eta txikienaren arteko bitartea, luzera neurri gisa erabili izan dena. Patxi Ezkiaga

Horrez gain, gizakiaren gorputzaren ataletatik atera zituzten eraikuntzako eragiketa guztietan beharrezkotzat jotzen diren neurrien arteko erlazio guztiak, hala nola hazbetea, **arra**, oina eta ukondoa, eta zenbaki perfektu baten arabera antolatu zituzten, grekoek teleon deitzen duten horren arabera. Santiago Iruretagoiena

Kalean, miopiaren laino artean, neskato bat erdikusten zuenean, harengana hurbildu, eta, haren harrigarri, zehatz-mehatz arakatzen zuen, **arra** bateko distantziatik inguruan jira eginez. Juan Garzia

Ukondoari, izan ere, bi **arra** kentzen bazaizkio, lau **arrako** oina geratuko zaigu, eta **arrak** lau hatz ditu. Santiago Iruretagoiena

Konturatu ziren, gainera, ukondo batek ere sei **arra** dituela, hau da, hogeita lau hatz. Santiago Iruretagoiena

Harrizko etxeak eraikitzen zituzten, ez hain eder baina bai gotor: batzuek, aldiz, zurezko ziren eta zorutik zenbait **arraz** jasorik zeuden. Juan Garzia

Aurki etsi nuen horretaz, neure gelazuloa **arraz arra** arakaturik, zeren aurreko urte haietan elikagai izan nituen eleberriak ihesaldi miragarriz beterik baitzeuden. Juan Garzia

Landaretza joriak estaltzen du lurraldea, **arra** bete bat bera ere ez baitago berdez biluzturik, berdetasunak Po ibaiko hareatza zabaletaraino ere luzatzen duelarik bere nagusitasuna. Koldo Biguri

Baina metodo berarekin nahiko bagenu **arra** beteko zuloa egin, hori ez genuke oso erraz lortuko. Santiago Iruretagoiena

Zartagina Kalbinek sortu zuen, eta bataiatu gabe hildako **arra** beteko haurrak frijitzeko erabili. Xabier Olarra

Uraskaren lodiera **arra** betekoa zen. Elizen arteko biblia

2 ***arra bete***

Beira irakinezko belo uhinkari bat edukiko balitz bezala aurpegi aurrean, sudurretik **arra betera**. Koldo Biguri

-Hona hemen froga -esan zuen karabineroak, hormako zarpiaduran, leihotxo ospetsuaren hegi azpian **arra betean**, nabarmen ikusten ziren lau zuloak seinalatuz. Koldo Biguri

Kuia buru, tripa handi, bixar moxtun gizon ospetsuek gero, ezpainak irekitzen zituzten, gazia eta azukrea biltzen zuten petits fours eztien arraposki zintzurreratzeko, **arra bete** ricard basoari fermuki zetxezkiola. Itxaro Borda

Mundakako hilerrian Untzainen hilobian geldi, ba ote zekien Ernestek Duñabeitiaren txikitako jolaslekua hantxe zeukala, begiak Untzainen gurutzea baino **arra bete** gorago altxatuta zuzen begiratuz gero bostehun metrora, Sukarrietan. Edorta Jimenez

Ziegaren zoko-zokoan, gizon baten altueran, zulo bat zegoen, **arra bete** zabal. Fernando Rey

Orduan, ikusi egin zuen, **arra bete** doi batera. Patxi Zubizarreta

3 ***arra beteka*** *adlag* arrabetea neurri hartuz.

Nork neurtu du itsasoa esku beteka, edo zeruen zabala **arra beteka**, edo lurreko hautsa lakarika? Elizen arteko biblia

4 ***arra beteko***

Uraskaren lodiera **arra betekoa** zen. Ezpainak koparenak bezalakoak ziren, lili-lorearen tankerakoak; laurogei mila litro ur hartzen zuen uraskak. Elizen arteko biblia

Zartagina Kalbinek sortu zuen, eta bataiatu gabe hildako **arra beteko** haurrak frijitzeko erabili. Xabier Olarra

Baina metodo berarekin nahiko bagenu **arra beteko** zuloa egin, hori ez genuke oso erraz lortuko. Santiago Iruretagoiena

5 ***arra-egin*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Fiskalitateari dagokion atala aztertzen hasiko dira (oren osagarriak, etxegintza alorreko maileguen interesak, ondoriotasuna, zergen sabaia), gutxieneko zerbitzuetako legea, delituak **arra egiten** dituztenentzako gutxieneko zigorra finkatzeko legea, espetxe zigorra betetzeko gutxieneko adina apaltzea, unibertsitateen autonomia. ETC-prentsa

6 ***arra-erosi*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

EPFLek erosten du ontasuna, baina hiriak noiz nahi **arra erosiko** dio, kudeantza gastuak salbu prezio berean, eta baliatuko du trein geltokiko inguruak bere gisara antolatzeko geroan. ETC-prentsa

7 ***arra-erosle*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arra erosleak engaiatu dira langileen bakantza egunak osoki pagatzera, 70000 euroko gastua, engaiatu dira ere arrahartuko dituzten langileak bi urtez bederen atxikitzera. ETC-prentsa

8 ***esku arra*** arra.

Uraskaren lodiera **esku-arra** betekoa zen. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arra bat** (3); **arra besta** (3); **arra bete** (6); **arra beteko** (3); **arra da** (9); **bi arra** (4)
> **arratxo bat** (3)

---

arraba *iz* arrain batzuetan, arrautza multzoak eratzen dituen erraia, eskuarki arrainak erakartzeko uretara botatzen dena.

Kabiarra Errusiako plater bat da, gaizkata izeneko arrainaren **arraba** gazituekin osatua. Karlos Zabala

Haztegien hezetasun hartan zutik, **arraba** errun berrien usaina inguruan zuela ematen zuen, usain lodia, zingirako igebelar eta ihien artetik sortutakoa, arrautza multzoek sabelak lehertarazi eta eguzkitan maitasunez akituriko arrainetatik ateratzen diren unea Karlos Zabala

Hala zela hasi ziren ikusleak bata besteari, Tomen aitak arrazoi zuela, nahiz eta bazen han kresalarenaz gainera ke, fuel, gernu, izerdi, **arraba** ustel... Koldo Izagirre

---

arrabal ik **errebal**.

---

arrabaliatu, arrabalia(tu), arrabaliatzen *ipar* zerbaiten balioa, eskuarki diruarena, handitu.

Hori gehiago ezin onetsiz, mehatxuak eginak zizkion Washingtonek joan den ekaineko G 8 nazione aberatsen biltzarraren aitzinean, ordu zuela Xinak bere diruaren arrabaliotzea, eta huna azkenean jestu bat egin duela begi xabalen erresumak bere yuan dirua **arrabaliatuz**. Herria

---

arrabaliotze *iz ipar* zerbaiten balioa, eskuarki diruarena, handitzea.

Hori gehiago ezin onetsiz, mehatxuak eginak zizkion Washingtonek joan den ekaineko G 8 nazione aberatsen biltzarraren aitzinean, ordu zuela Xinak bere diruaren **arrabaliotzea**, eta huna azkenean jestu bat egin duela begi xabalen erresumak bere yuan dirua arrabaliatuz. Herria

---

arrabantxa *iz ipar* errebantxa.

Ekainean beharra dute **arrabantxa** Eibarren. Herria

Hea aldi huntan **arrabantxa** eremanen duten Marion eta Virginie-k!!!. Herria

Arrabantxa ostiral huntan bharra zen Angeluko Haitz Pean trinketean Herria

---

arrabataiatu, arrabataia(tu), arrabataiatzen du *ad* berriro bataiatu.

Igandean **arrabataiatu** zen, zein zen ohartutakoan. Iñigo Aranbarri

---

arraberotu, arrabero(tu), arraberotzen du *ad ipar* berriro berotu.

Inglaterrak eta Frantziak elgarren arteko lokarriak **arraberotzeko** parada bat ukan dute egun hauetan urteburukari. Herria

---

arraberotze *iz ipar* berriro berotzea.

Gehiago dena, egiten dituzte urtearen barnean ere beren ikusketa eta solasak ainitzek: munduari so, beren egiteko eta kurutzamendu aztertzeak helbide, eta jinak ziren etxe eta herrietako urratseri **arraberotze** baten emaitea gatik eta ez dute Maulen ere beste solasik izan egun hortan guzian. Herria

---

arraberritu, arraberritzen **1** du *ad batez ere ipar* eraberritu.

Baionan gertatu sutearen ondotik, erakusketa soinuduna **arraberritu** da eta berriro publikoari idekiko da Zuberoan, maiatzaren 17tik goiti, hiru asterentzat, hain zuzen Urdiñarbeko animazio gelan. Herria

Ondotik diruzainak konduak emanik administrazio kontseilua **arraberritu** da. Herria

"MVC edo Herritarren Etxea deritzona **arraberritu** dugu, 40.000 euro inguru ematen diegu urtero ibilmoldea sustatzeko". Berria - Harian

Gazaren etxetarat ezartzeak bukatu dira eta ondorioz bide fundituak **arraberritu** behar dira. Herria

2010eko tartean Habaseko etxebizitza sozialak **arraberritu** nahi ditu Herriko Etxeak. Berria - Euskal Herria

Okasione berean ur, ur zikin eta euri-uren sareak **arraberrituko** dituzte. Herria

Jabeak etxea 25 urterako utziko luke alokairu merkean, poltsa bati esker etxea **arraberrituko** litzateke eta epea iragan ondoren egoera onean berreskuratuko luke. Berria - Euskal Herria

Gaixtagin eta hobendun haundi baitira alabaina, beren herri zaharraren hezur zaharrak, ohidurak, mintzaira, eta urrezko kultura hau, ez bakarrik zaindu baina **arraberritu** eta gaurkotu ere nahi dituztenak, beren bihotz hoberenean eta nehori kalterik egin gabe. Herria

Orain arte musika eskola aterbetzen duen herriko etxe ohia **arraberritua** izanen da uda honetan. Herria

Jada hiruetan Uztaritzen antolatua izana zen holako egun bat eta zonbait urte hotan ez zen **arraberritua**. Herria

Jean Grenet-ek auzapez mandatua **arraberritzeko**, osasun handia eta herriarekiko kemena behar direla adierazi du bestalde, bozak orain balira, bera oraingoz arras ongi senditzen da. Herria

Saint Etienne deritzon lautada **arraberritzeko** planak ditu Baionako Herriko Etxeak. Berria - Euskal Herria

AB-ek leporatzen dio hiri elkargoari ez deus egitea etxe sozialen eraikitzeko edo **arraberritzeko**. Herria

Berandu gabe **arraberritzen** zuten. Gotzon Garate

Edertasuna eta lasaitasuna elkarri besotik helduta zeuden logelan, eta zapiz bildutako pitxer eta izarez estalitako aulkietan zehar ez haize zelatariek eta ezta itsas aire umelen sudur eztiek ere, igurtzitzen, usnatzen, beren galderak berritzen eta **arraberritzen**. Anton Garikano

2 (era burutua izenondo gisa)

Bai, apez bezala, ez ditugu ahantziko, Mixel Lekuona, zuk ongi moldatu elizkizun paregabeak, **arraberrituak** eta airosak. Herria

Ageri da Bestaberriak hurbiltzen ari direla, eta jada gure soinulariak galdeginak dira eskuin eta ezker, beren ikurriña **arraberrituarekin**. Herria

Zeremonia: Extebe elizan, eta segida omore onean, Mindegiko biltoki **arraberrituan**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bataioko agintzen arraberritzea** (3)
> **arraberritzen den** (3)

---

arraberritze *iz* eraberritzea.

"Gorputzari" doakionaz, edozoin kontseiluk izaten ditu egin beharrak: errepideen **arraberritze**, eskoletako haurreri legezko diru laguntza eta beste. Herria

Joan den urteko harat hunaten berri eman ondoan, zoin diren aurtengo egitasmoak jakiten da: ur sanotze lanak edo azenizamendu arrazoin berezi batzuen gatik beranta hartzen dutenak, trinketeko obrak, herriko eskolan 2 gelen **arraberritze**, gaztek herrian berean kokatzeko beharrezkoak dituzten bizitegien eraikitze, zuhaitz landatze 15 ektaretan, eta abar... Herria

---

arrabesta *iz ipar* bigarren besta, bigarren festa.

Igande 28 ean **arrabesta** goizean hasirik eguerditan zintzur bustitzea eta janaldia. Herria

Asteburu huntan, **arrabesta** dute. Herria

Arrabesta beraz helduden igandean egun osoan izanen da ganer huste batekin goizeko 8 orenetarik aratsaldeko 6 orenak artio. Herria

-Egun zortzi baitugu **arrabesta**, berriz jiten ahalko haiza? Janbattitt Dirassar

Igandean **arrabesta**. Herria

Herriko bestak eta **arrabestak** bururatuak badira ez ditugu besta egiteko parada guziak agortuak. Herria

---

arrabestakari *adlag ipar* arrabesta dela eta.

Eta horren parada ukanen duzue urriaren 24ean, igande goizeko 11etan, Donoztirin **arrabestakari** jokatuko den lehiaketan. Herria

---

arrabete **1** *iz* luzera neurria, 21 zentimetroren baliokidea, eskuko hatz lodiaren eta hatz txikiaren arteko distantziari dagokiona gutxi gora behera.

Cascaisko ibarra ere zapaldu nuen, egia, baina ez nintzen han barna behar baino **arrabete** urrunago joan. Edorta Jimenez

Arrabete ere ez nauk aitzinatuko. Aingeru Epaltza

Mogueimek **arrabetera** ikusten zuen alemaniarraren garondoa. Jon Alonso

Nire aurpegitik **arrabetera**, egongelako ate-markoa mila puska egin zen. Alberto Ladron Arana

Nekezago ondokoari, nire bularraldetik **arrabetera**. Aingeru Epaltza

Bibote antzeko orina, zazpi-zortzi ile zintzilik zeuzkala, urre gorrizko hariak ziruditenak, eta **arrabete** baino luzeagoak. Patxi Ezkiaga

Ateraldi horietariko batean, Ansabereko orratzetan goiti ari zirela, kabroi horrek irtenune llabur batean abandonatu zuen gure alaba; bi **arrabete** zabal, zorutik berrehun metrora. Aingeru Epaltza

Altueraz ere, **arrabete** kentzen zigun, inoiz harrapatuko ez genion aldea. Aingeru Epaltza

2 ***arrabeteko*** *izlag* arrabetea duena neurri.

Hura beheititua zen, baina ez osoki: behealdean **arrabeteko** zirritua ageri zitzaion, eta handik argi mehe bat kanpora isurtzen. Aingeru Epaltza

Larruaz enkoadernaturiko **arrabeteko** liburuki batekin agertu zen berriz. Jon Alonso

Gero, etxe zuriak, etxe txiki zuri garbiak, lorategietan sagarrondo oparoak, daliak eta **arrabeteko** arrosak zituztenak erre egin zituzten, etxearen nortasuna ezabatuz etxean bizi izandakoen izaera ezabatzen zutelakoan. Felipe Juaristi

Aulki gainean **arrabeteko** jauzia eman nuen-. Alberto Ladron Arana

Andereño kokots-zaleak, **arrabeteko** aparra atera zionean, hura bukatu zitzaiolako itxurak eginez, ur bila joateko esan zion txarrodunari; bitartean itxoingo zuela-eta Don Kijotek. Patxi Ezkiaga

---

arrabia ik **errabia**.

---

arrabildu, arrabil(du), arrabiltzen du *ad* berriro bildu.

Segundo batzuetan arretaz errege-erreginen irudiei begiratu ondoren, **arrabildu** egin nituen bi pardeltxoak, eta mesanotxeko kaxoian sartu. Txillardegi

Hobe segurki beren libertatea gisa bat edo beste **arrabildu** duten gaixoentzat, baina nun dira xuxen osoki garbi diren birjina sainduak, bereziki politika tratu horietan? Herria

Bulgariak bere 334 infanteriako soldadoak **arrabilduko** ditu etxerat urte ondarra barne. Herria

Bestalde uste da Antso erregeak Gaskoniako düka lagüntü züala Tulusako jaunaren aitzi, Comminges eta Couserans eskualde baskoien **arrabiltzeko** gerlan. Herria

---

arrabiloba *iz* bilobaren iloba.

Apur batez, emazteak ez zuen ihardoki, baina geroxeago, beheko ezpaina ikaratu zitzaion, besoak luzatu zituen bere **arrabilobaren** hartzeko eta kulunkatu zuen sehaska kanta bat hain zuzen berrogeita hamar urte lehenago bere seme gazteenaren lokarrazteko kantatzen zuen haren kantatuz, edo hobeki erran, xuxurlatuz. Elena Touyarou

Apur batez, emazteak ez zuen ihardoki, baina geroxeago, beheko ezpaina ikaratu zitzaion, besoak luzatu zituen bere **arrabilobaren** hartzeko eta kulunkatu zuen sehaska kanta bat hain zuzen berrogeita hamar urte lehenago bere seme gazteenaren lokarrazteko kantatzen zuen haren kantatuz, edo hobeki erran, xuxurlatuz Elena Touyarou

---

arrabio **1** *iz* muskerraren itxurako animalia urlehortarra, bereziki *salamandra* espeziekoa.

Arrabio, iz. Jatorriz, sutan bizi zen narrastia; gerora, antropomorfo hilezkorra, baina beti pirofiloa. Xabier Olarra

Arrabio, korrokoi, amesgaizto edo dena delako mamu beldurgarri hura hantxe zegoela gordeta, zakarrontzian. Hasier Etxeberria

Ibai baten ertzean, **arrabio** bat dabil hara-hona, urduri, beste aldera nola pasatuko. Juan Garzia

Bihotz ilunak egin zitzaizkion eta berehala, **arrabio** batek heldu izan balio bezala, lo-hasmatik esnatu zen. Patxi Zubizarreta

Landaredi ezin ederragoa sortzen hasi da nire irudimeneko lur arrakalatuan, eta harria eta **arrabioa** besterik ez zen tokian, oasi bat jaio da. Berria - Kultura

Askoz lehenagoko sineste zaharretan, berriz, sutan bizi zitekeen eta sua itzal zezakeen narraztitzat omen zeukaten **arrabioa**, bere hoztasunagatik. Patziku Perurena

Nere bizian, arrunt gutxitan ikusten ditut **arrabioak**, eta gaur goizean, Irolako borda ondoan ustelduxea zegoen zotz pila erretzen ari naizela agertu zait bat, aspaldiko partez, azpiko zolan suak erre nahi ezik utzi didan orbel morddo hezean. Patziku Perurena

Arratsaldean ere izaten zituzten beren denbora-pasak: sugandilak eta **arrabioak** harrapatzen jardun, madariondora igo, landareak ureztatu. Josu Zabaleta

Bazen neure onetik ateratzen ninduen zerbait, zera: **arrabioak** putzu bakoitzean gainezka, **arrabioak** istil xixtrin bakoitzean bor-bor... eta, oro har, atergabeko landare-narotasun hura, malastasun-usain hura, umotasun ustelduzko kirats hura. Joxe Austin Arrieta

Silfideak gnomoen, ninfen eta **arrabioen** lagunak ziren oso, oihanean, uretan eta sutan hurrenez hurren bizi baitziren, gaur hiru leku osasungaitz direnak. Xabier Olarra

Baserri edo borda ingurutan, berriz, denbora askoan kanpoan euritan eta lurraren kontra egondutako harri, enbor, iratze eta beste edozein zakar pila harrotzen hastea aski, azpian **arrabioren** bat azaltzeko. Patziku Perurena

Ibai baten ertzean, **arrabio** bat dabil hara-hona, urduri, beste aldera nola pasatuko. Juan Garzia

Bihotz ilunak egin zitzaizkion eta berehala, **arrabio** batek heldu izan balio bezala, lo-hasmatik esnatu zen. Patxi Zubizarreta

Dena dela, **arrabio** bati begira gelditzen naizen aldiro, Pirron filosofoaz oroitzen naiz. Patziku Perurena

2 ***arrabio arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Arrabio arrunta ("Salamandra salamandra") anfibio urodeloa da, Salamandridae familiakoa, Europan bizi dena. ETC-entziklopedia

Apo arrunta (Bufo spinosus) eta **arrabio arrunta** (Salamandra salamandra) ere bizi dira bertan, nahiz eta gaurkoan ez ditugun ikusi. ETC-prentsa

Kondairak aipatuta, nola ahaztu eguna amaitzear zela agertu zitzaigun espeziea: **arrabio arrunta** (Salamandra salamandra), suarekin, heriotzarekin eta infernuarekin lotu izan den anfibioa. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dio arrabioak** (3)

---

arrabita 1 *iz* biolinaren antzeko musika tresna, artzainek-eta erabiltzen zutena.

Imad gure taldeko musikaria zen; oso ondo jotzen zituen **arrabita** eta lautea. Juan Kruz Igerabide

Arrabita harturik, Sankerrek luzatzen zizkion begirakune suminkorrak saihestuz, poeta afinatzen hasi zen. Patxi Zubizarreta

Baitirudi ezen italianoaren boz-kordetarik lautak, harpak eta **arrabitak** mintzo direla. hari ikustezin batzuk ote ditugu buru barrenean, eta spiritu bat -edo iratxo bat ote da, jaun André? Joan Mari Irigoien

-, zeinak hariak astintzen dituen, arrabitajole batek bezala **arrabitaren** hariak? Joan Mari Irigoien

Nire irakasle Abdul Rahman-i eta haren **arrabita** magikoari eskerrak, beste kanta batzuk ere ikasi nituen. Juan Kruz Igerabide

2 *arrabita jotzaile*

Soinu egileen atalean ere, xumetasunerat jo du Jesüs pastoralak, txirulari, txanbelari, atabalari eta ttun-ttun eta **arrabita jotzaileek** soilik lagunduko baitituzte kiristi, türk eta satanen ateraldiak. Berria - Kultura

Hala, jelkaldien eta dantza-jauzien lagungarri izango diren musika egileak bi txanbelari, atalabari bat, ttun-ttun jotzaile bat, **arrabita jotzaile** bat eta akordeoi jotzaile bat izango dira, besterik gabe. Berria - Kultura

---

arrabitajole *(orobat **arrabita jole**) iz* arrabita jotzen duen musikaria.

-, zeinak hariak astintzen dituen, **arrabitajole** batek bezala arrabitaren hariak? Joan Mari Irigoien

Biola, lira, harpa, ttunttun edo **arrabita joleek** lagundurik, bertze batzuk eguzkitan dantzan ari direla. Aurelia Arkotxa

Ondoren, 4 musika erakaslek, Nelly, **arrabita jolea**, David, gitarra jolea, Christelle, akordeoi jolea, eta Maylis tronpeta joleak Tzigane musika batzu jo dituzte: erritmoak, abiadurak, jendeak loriatu dituzte. Herria

---

arrabitalari *iz ipar* arrabitajolea.

Azken kontzertua ondoko ortziralean, Marina Chiche **arrabitalari** eta Sarah Tysman pianoan. Herria

Pinturaren teknika ezberdinen ikasteko, modeloak kopiatzen nituen, Monet-en Le pont d'Argenteuil, Rouault-en Kristoak, Chagall-en **arrabitalariak** ... Ana Urkiza

---

arrabitari *iz* arrabitajolea.

Jendeak ari ziren sartzen, eta joanak ziren **arrabitariak** berriz jin ziren sekulako martxako rigodonak joz. Aurelia Arkotxa

Bela Bartok konpositoreak lan handiak erabili zituen hongriar eta errumaniar ohiko musikak biltzen eta bere erara moldatzen, bi **arrabitarik** jotzeko gisan. Herria

---

arrabiziarazi, arrabiziaraz(i), arrabiziarazten *du* ad *ipar* berriro biziarazi.

Zerbütxügüneko 'Eretzü' bilgian, Bortükariak jünta bat plantatzen dü, ola xahar elibaten arraberritzeko eta mendi aterbü gisa **arrabiziarazteko** manerarik balizateanez mintzatzeko. Herria

---

arrabokatu, arraboka(tu), arrabokatzen da *ad* oldartu.

Egun soil bat ez da pasatzen araba auher horietarik bat gure kontramaixu bati edo besteari **arrabokatu** gabe. Itxaro Borda

- Badakizue ez duzuela eske ibiltzeko eskubiderik; eta isileko baimena daukazuen arren, ez zaretela jendeei **arrabokatzen** ahal. Itxaro Borda

---

arrabol 1 *iz* zilindro formako gauzakia, hainbat zereginetan erabilzen dena.

Eskutan gozotegietako **arrabola** gogoratzen zuen tresna zilindriko eta irrigarri samarra zeukan. Urtzi Urrutikoetxea

Zurezko **arrabol** batekin hasi zen zabaltzen orea. Anton Garikano

Hura, ohikoan gizon alai eta barkabera izanik, loa galdutakoan basatia zen, eta jaitsi eta Antonio Ribera y Díaz de Heredia astin-astin eginda utzi zuen, irin orea egiteko **arrabolaz** jo ondoren. Felipe Juaristi

Era egokian zabaltzen ikasi nuen, ertzak ondo zanpatzeko **arrabola** erabiltzen eta haize-punpuilorik gabe kolatzen. Jesus Mari Mendizabal

Datu eta eraikin teorikoen arteko joan-etorri horrek zientzia-praktikaren **arrabola** (the mangle of practice) osatzen du: bai agentzia materiala (izadia, objektua) bai giza agentzia (gizartea, subjektua) elkarrekin lotzen dira ezinbestez zientzia-praktikan. Askoren artean

Makina horretan tornuan oso ondo bukatutako **arrabol** bat jartzen zen, eta haren gainean arietea jartzen zen, soka bidez aurrera eta atzera erabiliz efektu guztiz suntsigarriak eragiten zituena. Santiago Iruretagoiena

Hori baino pisu handiagoak mugitzeko makinak prestatu beharko balira, luzera eta lodiera handiagoko egurrak erabili beharko dira; eta proportzio berean besarkadera handiagoak erabili beharko dira goian, eta tornuen **arrabolak** ere handiagoak. Santiago Iruretagoiena

-Anna negarrez hasteko zorian zegoen, pertsianaren **arrabolak** haren aurpegiaren kontra jo zuenean-. Lopez de Arana

-Bizkor, eragin **arrabolari** ! -oihu egin zion Maizak. Migel Angel Mintegi

2 *arrabol bidezko forjatze* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arrabol bidezko forjatzea (ingelesez "roll forging") material bat plastikoki deformatzeko prozesuari deritzo, non materialaren zeharkako sekzio zilindrikoa edo errektangeluarra murrizten den arrabolen bidez. ETC-entziklopedia

3 *arrabolezko prentsa* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ezkerreko hormaren ondoan Kurt Wallanderrek sotoko atea aurkitu zuen, erdi ezkutatuta **arrabolezko prentsa** zahar baten hondakinen atzean. ETC-literatura, saiakera

---

arraboldun 1 *izond* arrabola duena.

-Bizardunekin? Zer ba? -galdetu diot, bat-batean atzoko tabernari **arraboldunaren** jarrera oldarkorra ekarriz gogora. Jon Arretxe

2 *arraboldun errodamendu* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Arraboldun errodamendu zilindrikoek karga erradial handiak jasan ditzakete; gainera, oszilakorrak direnez, gai dira bi errodamenduren artean kokatuta dagoen ardatz

baten makurdura jasateko. ETC-entziklopedia

---

arraboska *adlag* oihuka arituz, deiadar eginez.

Neure dohakaitzen jakitun egin nuen, nonbait; goizaldeko lauretan pentsiotzarreko atean ginen, **arraboska** unibertsitatekumeak bezala. Aingeru Epaltza

---

arraboskari *izond irud* arraboska egiten duena.

Ahal bezain geldi, ohe **arraboskariak** sala ez nintzan, Edurnek ateratzen zituen soinuen pentagrama irakurri nuen nire belarrien partituran. Aingeru Epaltza

---

arrabot ik **errebote**.

---

arrabota *iz* zurginaren marrusketa tresna.

Elizaren aitzinaldeak frontoi zabal baten sinpletasuna dauka; beherean ate gotiko batek hausten du murrua; **arrabota** baten erdian, ateak xilo artistiko bat dirudi. Piarres Aintziart

---

arrabote ik **errebote**.

---

arrabots 1 *(ETCn **526** agerraldi; orobat **harrabots** ETCn **1.351** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **harrabots** agertzen da) iz* zarata. ik **herots**; **harrabots**.

Txorien **arrabotsa** egunsentian. Joxe Austin Arrieta

Egunaz lo, gauaz besta, musikaren orde **arrabotsa**. Herria

Itsasoaren **arrabotsa** arbuiatu zuena. Xabier Amuriza

Munduko berrien **arrabotsa** eztiturik zetorkidan. Piarres Aintziart

Karlisten gerlako garrasiak eta armen **arrabotsak** ahantziak dituzke zubiak, eta hemen jadanik zabal eta nasai dagoen Arga ibaiak ere. Piarres Aintziart

Mendiek, **arrabotsak** zauriturik, ahotsak munduko izarretaraino berriraizten dituzte eta zaldunek ingurua hegatzen eta zelaia tanpez zeharkatzen dute, oldar bortitzean inarrosiz. zaldi ferratu batek bezainbat azantz edo **arrabots** egiten zuten Luzaideko karrikan ibiltzean. Xabier Amuriza

Plaza ondo horietako jendeak arranguratzen, ez dutela lorik egiten ahal, **arrabotsaren** gatik. Herria

Auzokideek **arrabotsak** entzun zituzten etxean eta handik gutira tarrapataka ikusi zuten eskaileretan behera, "emaztea eta alaba hilak daude, poliziari dei egin iezaiozue" erranez. Berria - Euskal Herria

Txikito Kanbokoa, nardatua, denak untsa zuzendu nahiz, haren boza ezin entzuna **arrabotsaren** eta oihuen artean. Michel Oronoz

Garrasien **arrabotsean** murgildurik, hitz isilak eskaintzen dizkiot ene kaierari. Piarres Aintziart

Eliza osoa **arrabotsez** eta zalapartaz bete zen. Michel Oronoz

Egunak joan ziren, **arrabotsik** gabe. Txillardegi

Orduan kultu publikoa debekatua zelakotz, kultoaren egiten hasi ziren, elgarren artean, lerroka, xut, **arrabotsik** eta harrokeriarik gabe. Marzel Etxehandi

Denak hurbildu ziren **arrabotsik** egin gabe. Michel Oronoz

Arrabots eta musikaz beharriak tutatuak. Herria

Hamar egunez, segur eginen duela **arrabots** Korrikak, Euskal Herri guzian. Herria

Ostatuko hozkailuak sobera **arrabots** egiten du gauaz, eta partiden ondotik haroa ezin ixildua dela, auzotarren defentsa elkartearen arabera. Herria

Gero jokoak eta dantzak izan dira eta dena hautsia izan da bulta hori, euria eta ortzanz **arrabotsekin**. Herria

Irulegiko Herriko Etxeak orduan Ddass egiturari eginarazten dion **arrabotsaren** neurtzeak erakustera emaiten du legeak baimentzen duen **arrabots** neurria ez dela gainditua, hots azantz hori ez laikeela kaltegarria auzoentzat. Herria

Irulegiko Herriko Etxeak orduan Ddass egiturari eginarazten dion **arrabotsaren** neurtzeak erakustera emaiten du legeak baimentzen duen arrabots neurria ez dela gainditua, hots azantz hori ez laikeela kaltegarria auzoentzat. Herria

2 (izenondoekin)

Mahasti eta sagardoien erditik heltzen gira Santiagorat: mugimendu eta **arrabots** handiko hiri nagusia, San Cristóbal eta Santa Lucía mendixken gainetik agertu zauku hiri zabala, lanoxka kutsatu baten artetik. Herria

Holaxet du ereman Kaietek bere mundu huntako bizia **arrabots** handirik egin gabe. Herria

Mahai batean morroskote batzuk ari ziren **arrabots** handiz jan eta edaten. Juan Garzia

Haurra eta bere ninia urrunarazteko, gidariak bere autoko akzelarazio pedala zapatu zuen **arrabots** mehatxagarri baten egiteko gisan. Ramuntxo Etxeberri

Bat-batean gaua husten da, ez jakinean hainbeste **arrabots** bereziz betea baita gaua, doi-doia entzuten direnak, baina gauari bere bizia emaiten dutenak. Michel Oronoz

Laminak iduri konkorturik hatsa penatua lerro lerro baginoatzin; bat batean sumatu ginuen **arrabots** bitxi bat hats luze bat iduri. Herria

Hasi zen heieri harrika eta ohartu zen, harria bota bezain laster uso pila osoa **arrabots** ilun batekin, lurreraino apaltzen zela. Herria

Ez dakit denen gustukoa izan den, loa ohean hautsi digun **arrabots** samina! ageri publizitatea eta dirua hor direla, egun aldiz bortuaren ixiltasuna, bakezko giro bat, bakarrik behien joare-pulunpen **arrabots** aspergarri bezen ederrak. Piarres Aintziart

Goizero, zarata arraro batek iratzartzen ninduen, erdi industria erdi musikazko zarata batek, zer ote zen ezin igarrizko **arrabots** ez ozen baina bai setati batek: kilkerrena bezalatsukoa zen, metalikoa, monotonoa, eta mekanikoa behar zuen, inondik ere, baina nik antzematen ez. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrabots gaitza** (3); **arrabots gehiago** (3); **arrabots handirik egin** (4); **arrabots haundirik gabe** (4); **arrabots sobera** (3); **sobera arrabots** (4)

---

arrada 1 *iz* hotsa.

Danborren **arrada** entzun eta suteak piztu ziren. Agustin Otsoa

Egun hartan, turutek soinua jo zuten, danborrek **arrada** egin, mosketeek tiro bota. Karlos Zabala

Danborrek **arrada** bizkorragoa egin zuten. Agustin Otsoa

Danborren **arrada** luzea entzun zen, mendietako trumoiaren antzekoa. Agustin Otsoa

Harryk aintzira aldera begiratu zuen, bihotza danbor-**arrada** bezala entzuten zuela bularrean. Iñaki Mendiguren

Mab Erreginaren jauregiko lurraldeetatik danbor-**arradak** etorri ziren, errege-guardiak abisua jaso zuela adieraziz. Julen Gabiria

2 badia edo itsadadar modukoa, itsasontziak babesteko balioa duena.

Atzerapena zerk ere eragin zuen, goizeko hamaiketan Bermeoko **arradan** ziren hiru ontziak. Edorta Jimenez

3 *adlag* mukuru.

Basoak eskoziako whiskeyz **arrada** bete zituen. Itxaro Borda

Ordea, amodioaren estirak nekez esplika zitezkeela niolarik, ikastolako arduraduna bi godalet plastiko garagardoz **arrada** beteak ekarriz hurbildu zitzaidan. Itxaro Borda

4 ***arradaz*** *adlag* mukuru.

Errioxako ardo zehargiz **arradaz** bete godaleta altxatzen zuen batek. Itxaro Borda

5 ***danbor arrada*** danbor joaldia.

Estandarteak flotatzen ari ziren airean, bular bandak desfilean zihoazen, bat-bateko **danbor arrada** batek eztanda egiten zuen haren belarrietan. Karlos Zabala

Hiru iturrietako bakoitzaren aurrean txanda iritsi zain egoten ziren neskameek eta haien laguntzaileek -okinek eta gudariek- suiletan jotzen zuten **danbor-arradetan** bilatu behar baita. Askoren artean

Harryk aintzira aldera begiratu zuen, bihotza **danbor-arrada** bezala entzuten zuela bularrean. Iñaki Mendiguren

Mab Erreginaren jauregiko lurraldeetatik **danbor-arradak** etorri ziren, errege-guardiak abisua jaso zuela adieraziz. Julen Gabiria

6 ***txiza arrada*** *(corpusean* ***txiz arrada*** *eta* ***txizarrada*** *soilik)* txiza zorrotada.

Txiz arrada ederrak lagatzen dituk tazatik kanpora. Iñaki Iñurrieta

Ozta-ozta ematen zidan abagunea **txizarrada** bizkor bat eta kaka mokordoa bota nitzan, eta berehala itzularazten ninduen etxera. Jon Arretxe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **danborren arrada** (7)

---

arradail *(corpusean ez dago; ETCn* ***4*** *agerraldi) iz* bibelarra.

Eta kaleko hots eta **arradailetik** urrun, piztutako leiho batean, gizon bakarti bat karatea praktikatzen. ETC-prentsa

Honela bibelarra, bibedarra edo **arradaila** ondu nahi bada gauerako metatxorrotu egin behar. ETC-prentsa

---

arradaka *adlag* zarata eginez.

Baina eseri egin zen, eta berriro **arradaka** hasi ziren danborrak entzun zituen, lehen baino gertuago.Azkenean ahotsak entzun zituen, oso ahots geldoak, eta zuhaitzen artetik igarotzen ziren argiak ikusi zituen. Agustin Otsoa

---

arradatu, arrada(tu), arradatzen du *ad* berdindu, lautu.

Ez dut gogoratzen noiz sortu nuen, ezinezkoa da eguna zehaztea, are gutxiago unea, ez bainuen bat-batean osorik ezagutu, pixkanaka baizik, halako batean aurpegi eta guzti agertu zen arte: Bambi begiak, burua **arradaturik**, 1.80 metro, berrogei urte inguru, argala baina gihartsua. Eider Rodriguez

---

arrado ik **arraro**.

---

arrafin *iz* fin-fina.

Bere antzeko gazte guri **arrafinekin** adiskitzeko ezgauza imajinatu dugu Lotsati. Xabier Mendiguren Elizegi

Mirande bera baino gerraren eta indarraren, are barbarotasunaren eta basakeriaren gorazarrean, Don José **arrafin** dotorea esplizituagoa izan da, halere. Joxe Azurmendi

---

arragoa **1** *iz* labearen behealdeko barrunbea, besteak beste burdin urtua biltzen duena.

Baina hondakinak suaren **arragoan** xahutu eta garbituz gero beste zerbait dira, errauts dira, "bizigai" dira berriro. Joseba Zulaika

Zure aurka ekingo diot, zure zaborrak erabat erreko ditut **arragoan**, errauts guztia kenduko dizut. Elizen arteko biblia

Urrea **arragoan** bezala garbitu zituen, eta erre-oparia bezala onartu. Elizen arteko biblia

2 ontzi aho-zabala, urrea, zilarra eta kidekoak oso tenperatura garaietan urtzeko eta beren lohitasunak garbitzeko erabiltzen dena.

Zilarra **arragoan**, urrea labean: bihotzak Jaunak ditu probatzen. Elizen arteko biblia

3 irud/hed

Xerkatzaile on batek, beraz, aldean darama guztia: buztinezko **arragoa**, zotz-ikatza, ardagaia, sutaltzairua, eta beste lanabes bat ere bai, sekretua izanik ezin baitut hemen aipatu, zeinak harri bat on den ala ez ikasteko balio baitu, hain zuzen. Juan Garzia

Zeren haren urruntasun hura urtu nahi bainuen jada neure bihotzaren **arragoan**. Joan Mari Irigoien

Euskararen agonia, antzinatearen oihartzun arkeologikoak, kristautasunaren krisia, meatzari eta langileen ezkerraldeko zeru hautsez betea, ikasleen erreboltak, gorriz koloreztatutako sinesmen berriak... hori izan zen gure ametsen eta desiren **arragoa**. Joseba Zulaika

Egiaren **arragoa** gaizto hau antzinako legeria basatiaren monumentu bizia da, suaren eta ur-irakinaren frogei eta armen zori ezustekoari Jainkoaren epai deitzen zitzaion garaikoa. Juan Martin Elexpuru

Garbitu egin zaituztet, baina ez zilarra bezala, sufrimenduaren **arragoan** probatuz baizik. Elizen arteko biblia

Mugetan jarritako goarnizio militar iraunkorrak **"arragoa"** bihurtzen dira, non gutxiengo menderatzailea bera kanpo- eta barne-proletalgoarekin urtzen baita. Iñaki Mendiguren

Eta Selvaggiaz oroitu gabe, formen **arragoaren** gainean makurtua zirudien eternalki Uccellok. Juan Garzia

---

arragotu, arrago, arragotzen du *ad* arragoan garbitu.

Urrea eta zilarra garbiak dira egiaz; baina horiekin edontzi bat egin behar denean erregek edan dezan, suz **arragotzen** dira beste pertsona batentzat direnean baino areago. Joan Mari Lekuona

---

arrahartu, arrahar(tu), arrahartzen du *ad ipar* berriro hartu.

Clefe bakotxak urte bat barne diru zama bat baztertzen du bere enpresa muntatu edo norbaitena **arrahartu** nahi luken andere bat laguntzeko. Herria

Xibero güzitik jin hamalau kantari eta bost müsikariek ohizko kantoreak **arrahartü** dütüe, baita ere hamar bat kantore berri lantü. Herria

Mendi aldeko bi eskualde **arrahartüko** deitzo Antsok: Sobrarbe eta Ribagortza, Andorrako mügan azken hau. Herria

Kantore berriak ere entzün dira, hala nola bat ostatü giroa **arrahartzen** düana, segür beharre 'mahainak ez dira mintzo, beit lükee zer konta'. Herria

SAFAM **arrahartzeko** urratsak. Herria

Geroztik Jean Bernard Malo, ADA altzairutegiko zuzendariak gibelera egin zuen galkategiaren osoki **arrahartzeko** xedean. Herria

---

arrahartze *iz ipar* berriro hartzea.

Xavier Etcheverry-ren **arrahartze** proiektua azkenean onartua izan da. Herria

---

arrahaur *iz ipar* iloba.

Esperintzia bazeukan alabaina, semeak **arrahaurra** ikustea debekatu zion arte attatta-kremazua izan zelako. Itxaro Borda

Haren emazte, haur, **arrahaur** eta jendaki guziari eskaintzen ditugu gure doluminak. Herria

Sortuz geroztik Erretretan girenek ere hazten dügü kontsomatüz, ahal dügün sosa baztertüz eta banker perestatüz, gure haur eta **arrahaurrak** lagüntüz, azken fiala bait erostea eta sosaren plazatzea beitira ekonomiaren bi bularrak. Herria

Maianak ez zituen orenak sekula alferrik higatu; beti bazuen zerbait egiteko, etxea garbi, poallak bazka, ardiak jetzi, sasoiko traholak, haurrak ala **arrahaurrak**. Itxaro Borda

Püblikoan, katolikoan ala ikastolan, eskolako bidea hartzen düe gure haur eta **arrahaurrek**. Herria

Beraz **arrahaurrer** erraiten ahal deiegü Jinko Aitak bidea lüzaz prestatü zeiola Palestinan, jente hanitxen lagüngoarekin: haietan lehena Abraham (Ibrahim), fededünen aita, izan gitean jüdio, kiristi ala müsülman. Herria

Hori güzia, eta ontsattoz haboro ere badakigü denek, eta hanitx aisa konta dirogü **arrahaurrer**. Herria

Arrahaur ederrak eskainiko zizkion segur aski, baina Edmearen xede horiek ezabatzen zituen seme gaizoaren behin-behineko egoerak. Itxaro Borda

---

arrai 1 *izond* alaia.

Haizu zen, gainera, berriz eskatzea, mutur beltzik ikusi gabe, eta, hura bezain muntako, bakea bermatua zegoen: etxe-jabe **arraia** jan-edatekoak ekartzeko baizik ez zen hurbilduko Ximurrak bere egiten zuen gelara. Aingeru Epaltza

Eta emazteki **arraia** zen, nahiz eta ezkondu bezain fite -Felisak hogeita hamabortz urte zituenean, beraz, zeren berant ezkondu baitzen- senarra galdu zuen. Joan Mari Irigoien

Baina zure aurpegi **arrai** hura berehala itzali zenuen, zure hazpegiak menderatu beharrez, eta, hortik aurrera, ez zenuen begirada hurreratu ere egin ni nengoen aldera. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero eta ondorioz, haien aurpegi **arraia**, haien begi alaiak, haien irribarrea ikusiko dituzte musikaren lainoen artean, eta haiek ikusteko gogoa piztuko zaie, grinaz gainera. Felipe Juaristi

Haien ondotik igaro zen Joanes, eta ohartu zenez, begirada **arraia** eman zioten, argia eta beroa, denek. Felipe Juaristi

Behako hura arteztu zidan, nehoiz ere ahantziko ez dudan behakoa, tristea eta **arraia**, aldi berean: tristea, ene barrengo tristurarekin bat egiten zuelako, berak ere bere zalantzak eta ezbaiak izan zituelako sasoin batean, benturaz; eta, **arraia**, esperantzazko mezu bat zabaldu nahi zidalako. Joan Mari Irigoien

"Gizonari bibotea dagokio, emakumeari bularrak bezala", esan zidan Bonbain goi mailako hindu **arrai** batek. Gotzon Garate

Handik ukan nuen, eguerdi irian, lehen bisita, iguzki **arrai** bat. Marzel Etxehandi

Zin degizut ezen nekez jaso nezakeela hori baino berri **arraiagorik** eta alegeragorik. Joan Mari Irigoien

Eta aita ezin **arraiago** zegoen, eta nik, hamaika urteko umea nintzelarik, ez nuen ulertzen nola bakea sinatu ondoren egin zitezkeen armak. Joan Mari Irigoien

Haren bazterraldiak eta zure partitzeak ez dute gure lagunartea **arraiagoa** bilakatzen. Jon Muñoz

2 *adlag*

Arrai nagok, Italian ez bezala burua hausten ez ibiltzea erabaki dudalako, neure mugak onarturik eta neure burua muga horietarat egokiturik. Joan Mari Irigoien

Eta nik ez dakit zergatik, baina, etxean geratu beharrean, nola bainengoen **arrai** eta neure gogara, hala, euripean ibiltzen hasi nintzen eta aitzina egin nuen, putzu bat zegoen tokiraino, non jauzika hasi bainintzen. Joan Mari Irigoien

Etxean presentatu zitzaigun arte, **arrai** eta alegera, negozioak ezin hobeki zihoazkiolako. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan)

Eta Sebastiaok ametsean ere ikusi zuen emakume-talde bat, soineko gorriz jantzita, aurpegi-**arrai** denak, dantzan eta jolasean uraren inguruan, gizonezkorik gabe. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrai eta alegera** (22); **arrai nengoen** (3); **ez arrai** (4)

---

arraia 1 *iz* lerroa.

Uste dute gizateriaren historia gorantza doan **arraia** bat dela, perfekziora bidean. Pako Aristi

Pusketak desberdinak suertatu ziren, mozketa ez zelako tolesduraren **arraia** zuzenetik joan. ume ugari zegoen eskolako ate handien aurrean, bakoitza bere maletarekin, bere aurpegi garbiarekin, bere ile orraztu eta **arraia** artezarekin, bere amarekin, bere haur seriotasunarekin. Bernardo Atxaga

Orain galtzetako **arraia** ongi lisatutako bikotea noiz azalduko zain zegoen. Anton Garikano

Han agertu ziren egun batetik bestera kalean uniforme urdinarekin eta oso arraro orraztuta, burua gominaz bustirik eta ilearen **arraia** buruaren erdi-erdian eginda. Joseba Sarrionandia

Burualdean, melaiak adats beltzaren **arraia** eta begitartearen hazpegi xarmantak erakusten zituen. Patxi Zubizarreta

Zure buruak azalorea dirudi eta **arraia** horrek gauera arte iraungo du. Itziar Otegi

Hizkuntza ereduak eredu sozialarekin bat egiten duen bi **arraia** zaharren gurutzaketa. Iñigo Aranbarri

Bestera, arte edo literatur lan batean -zeinetan guzti-guztia, baita **arraia** edo komarik hutsalena ere, esanguratsua den- indibidualtasuna beti gelditzen da markatua. Bernardo Atxaga

Lebita horixka zuen, Errusiako seda gordinezkoa, galtza zuriak, **arraia** urdin fin-finekin, eta bota hori botoidunak. Matías Múgica

Urrats luze eta bateratuez, egoitza-auzoko plazan barrena, **arraia** perfektoko galtza zuriak eta jaka harroak zeramatzaten mutilen ondotik pasatu ginen. Koro Navarro

Zeru zurixka hartan euriak zehar-**arraia** ilunak osatzen zituen. Bernardo Atxaga

2 *adkor* kokaina edo heroina hautsezko dosia, lerro itxura duena.

Beti gordetzen nuen parranda eta gero azken **arraia** bat etxerako. Urtzi Urrutikoeetxea

Onartuko didak birratxo bat **arraia** truk. Urtzi Urrutikoeetxea

3 ***arraia begitxiki*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arraia begitxikia ("Raja microocellata") ur gaziko kondriktie arrain kartilaginosoa da, Rajidae familiakoa. ETC-entziklopedia

4 *arraia biribil* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arraia biribila ("Leucoraja circularis") ur gaziko kondriktie arrain kartilaginosoa da, Rajidae familiakoa. ETC-entziklopedia

5 *arraia gastaka* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arraia gastaka ("Raja clavata") ur gaziko kondriktie arrain kartilaginosoa da, Rajidae familiakoa. ETC-entziklopedia

6 *arraia isatslabur* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arraia isatslaburra ("Raja brachyura") ur gaziko kondriktie arrain kartilaginosoa da, Rajidae familiakoa. ETC-entziklopedia

7 *arraia marrazuri* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arraia marrazuria ("Rostroraja alba") ur gaziko kondriktie arrain kartilaginosoa da, Rajidae familiakoa. ETC-entziklopedia

8 *arraia pikart* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arraia pikarta ("Raja montagui") ur gaziko kondriktie arrain kartilaginosoa da, Rajidae familiakoa. ETC-entziklopedia

9 *arraia zerra* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Beste espezie batzuek, latitudea aldatu ordez, ur sakonagoetan bilatu dituzte tenperatura hotzagoak, platuxak eta **arraia zerrak**, esaterako. ETC-prentsa

Arraia zerra ("Leucoraja naevus") ur gaziko kondriktie arrain kartilaginosoa da, Rajidae familiakoa. ETC-entziklopedia

10 *manta-arraia* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Manta-arraia ("Mobula mobular") animalien erreinuko izaki biziduna da. Myliobatidae familiako itsas arraina da, 5 m inguru luzea, 4 bat m zabala eta 1.000 kg har ditzakeena. ETC-entziklopedia

Zuzen-zuzen begiratzen zion parean zuen platerari; **Manta-arraia** xerrak kapar gurin urtu eta karamelu bihurtutako perrexilarekin. ETC-literatura, saiakera

Esate baterako, **manta-arraiak** ikusi ditut nik zutik egonda, Uruguaiko harkaitz batzuetan. ETC-prentsa

Marrazo lehoinabarrak, **manta arraiak**, urpeko sugeak eta oso gutxi ikusten diren arrain pipa mamuak azaltzen dira. ETC-prentsa

Amets batzuk, izan ere, ez dira fantasia besterik: **manta-arraia** batek zerua hegan zeharkatzea adibidez, edo gerra bat itzaltzea, sute bat balitz lez, euria egiten duen bakoitzean. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arraia bat** (3); **arraia hori** (4)
> **arraiago eta ezin** (3)

---

arraiadun 1 *izond* arraia edo arraiak dituena.

Gora joan eta traje **arraiaduna** jantzi nuen. Koro Navarro

Etxe-salmenta da New Yorkeko erlijio ofiziala, eta erlijio horretako jainkoak traje **arraiadun** gris bat darama jantzita. Oskar Arana

Hamabi ordu soldaduz inguratua, hamabi orduz beroki gris batez gordea, hamabi ordu presoaren jantzi **arraiaduna** soinean. Felipe Juaristi

Beste batzuek pipa makurrak erretzen zituzten eta pipa hortzen artean estututa hitz egiten zuten, baziren galtza **arraiadunak** eta idun gogorrak, eta baita onddo kapela ausart bat ere. Koro Navarro

Aurreko urteko irailean eginiko argazki batean, eserita nago, ilea sorbaldetaraino, oso beltzaran, lepoko eta alkandora eskotatu **arraiadun** batekin, irribarretsu, bihurri. Joseba Urteaga

Jaka zuria kendu gabe atera zen berriz, makila **arraiadun** koloretsu bat hartuta. Koro Navarro

2 (izenlagun gisa)

Hura museoko zuzendariarengana joan zuen, gizon txiki baina dotorea bera, **arraiadun** trajea, gorbata koloretsu batekin lehian zeramana, eta belarritik tiraka salaz sala eraman zuen. Felipe Juaristi

---

arraiatu 1 *izond* arraiak dituena.

Kotoi **arraiatuzko** jaka zeraman otseinak (polizia, zalantzarik gabe, edo, adina kontuan hartuta, agian polizia ohia) liburutegi handi eta ordenatu batera sarrarazi zuen. Jon Alonso

2 *arraiatuta* (adlag gisa)

Gainazalaren erdigunean ere beste zati bat, txikiagoa, halaxe **arraiatuta** ageri zen, eta ezker-eskuin marra horizontal banak alboetako zona marratuekin lotzen zuten. Iñaki Iñurrieta

---

arraie *interj* “arraio”-ren leungarria.

-Arraiea ! -esan du-, uste nuen deabrua zetorkidala lur azpitik. Itziar Otegi

---

arraieria *iz* alaitasun gaitzesgarria.

Bata ordüko teologia beharrena ikasten günüala xorroxki bere bikaria deitzen züan dizipülü gaztearen ahotik, erakasle argia eta larderiatsüa beitzen, soinez bezain karratü espiritüz, **arraieriarik** gabe laneko denboran. Herria

Etxeko amodioa zuen gizona zen, **arraieria** onekoa eta eskulangile trebea laborantxako lanen artetik... Herria

---

arraietan *interj* harridura, haserrea eta kidekoak adierazteko hitza. ik**arraio**.

Argala izan beharra dago gurte gizartean, **arraietan** ! Imanol gizarajoa potolo frustratua zen, zalantzarik gabe: 115 kilo izatera iritsi zen nerabezaroan eta, harrezkero, argaldu-gizendu argaldu-gizendu dantzan zebilen, akordeoia balitz bezala. Berria - Kultura

---

arraiki *adlag batez ere ipar* alaitasunez, adeitasunez, xaloki, lañoki.

Euskaldun horiek aditza hurrupatzen duten bitartean, guk ricard honi tinkaldi bat eman diezaiogun **arraiki**. Itxaro Borda

Kantariek, poetek, artistek eta oroz bat sortzaileek mugimendu horretan, **arraiki** parte hartzen zuten, diru publikoak euskaradunen irudi arkaikoa garatzen laguntzen zuelako. Itxaro Borda

Joxe Elosegik aurrera egin zuen hala ere, eta **arraiki** agurtu zuen atezainetatik handienak. Hasier Etxeberria

Euskaldun dela dioenak ez ditu demagun, atentatuak kondenatzen, arras **arraiki** txalotzen ez baldin baditu ere. Itxaro Borda

Eta zuk guztiak **arraiki** eta alegeraki errezibi. Pello Salaburu

Denak, abertzaleak barne, abere zaleak ziren **arraiki** eta baiki, naski. Itxaro Borda

-Ez al duzu etorri nahi? -hitz egin zion gazteak, **arraiki** -. Anjel Lertxundi

Hastapenean Philippek burua apaldu zuen, baina taldean garatzen zihoan zorionaz konturatu zenean, alegrantzia partekatu zuen **arraiki** . Itxaro Borda

---

arraikume ik **arrainkume**.

---

arraikusaldi *iz* berriroko ikusaldia.

Biltzarre hontan, 2002-2003 urteko **arraikusaldia** eta 2004-2005-eko xedeak egiaztatzeko bidean ezarririk izan dira. Herria

---

arraikusi, arrikus(si), arraikusten *du* ad berriro ikusi.

Gaurko mundua euskaraz **arraikustea** , arrasortzea aldarrikatzen du, eta ez frantsesez pentsatuz euskarazko zerbait egitea. Berria - Kultura

Gaurko mundua euskaraz **arraikustea** , arrasortzea aldarrikatzen du, eta ez frantsesez pentsatuz euskarazko zerbait egitea. Berria - Kultura

---

arrail 1 *iz* arrakala, arraildura. ik **artesi**.

Kontua da, ama nire hatzak ferekatzen ari bada ere, nik hesi baten moduko zerbait sentitzen dudala bion artean, ertzainen segurtasunezko zerrendak baino gehiago bereizten gaituen **arrail** halako bat. Anjel Lertxundi

Irudikatze horren kontzientzia dutenek bizitza euren nahietara egokiago hurbiltzen dutela iruditzen zait, murritzagoa zaiela euren borondateak bere zokoan amestu zituen gertaeren eta bizitzak dakartzan lorpenen arteko **arraila** . Pako Aristi

Slapater zerraldo erori da **arrail** karstikoetan, gizakiok naturarekin gorde behar dugun komunioaren sinbolotzat zeukan bere II Carso miretsian. Anjel Lertxundi

Hala zihoazen, sabela lurrerantz, sasiak zulatuz, **arrailak** igaroz, maldak igoz, zintzurretan behera irristatuz, eta adarra bularraren hauspo beteaz joz, gainerako jendea eta zakurrak erakartzeko. Josu Zabaleta

Ondoko **arraila** ez da nolanahikoa. Jose Angel Irigaray

Halaberean, sekulako alukeria izaten da niretzat auto-garbigailuetan, ohiko ikastun lohihartzekodunaren ordez, itsulapikoen gisako **arrailaz** hornituriko aparatua aurkitzea: sartzen diodan dirua ez da inoiz mangerari ur tantarik aterarazteko on. Aingeru Epaltza

2 ***hordi arrail*** *izond* erabat hordia.

Aita egun guztian kalean, tabernaz taberna, hordi **arraila** , eta ni hemen, astakilo hauek zaindu eta zuzendu nahian; nahi eta ezin: ni geroz eta ahulago, haiek urtetik urtera basapiztiak baino okerrago. Xabier Mendiguren Elizegi

3 ***mozkor arrail*** *izond* erabat mozkor. ik **arraildu 3**.

-Xangarin -esan zuen xuxu-muxuka-, agian ni mozkor **arraila** nagok eta mamuak ikusten ari nauk baina, ez duka hor aitzinean zuhaitzez besterik ikusten? Pablo Sastre

Ene enpatia txit sentikorra, maiteñoak, zeren arrano beltzaren tabernan nire egoera hauskor berean baitzeuden naufragiotik eskapaturiko dozena eskas bat mozkor **arrail** erabat deskontzertaturik. Patziku Perurena

Onenean ere, sabelak ongi beteta, mozkor **arrail** , beren buruari zutik eutsi ezinik, balantzaka egingo dute alde, eta oinez bihurtuko etorritako bidetik, urrats geldian. Imanol Zurutuza

4 ***ogi arrail*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Bahea (25-35 cm2 x 9-11 cm): irina, **ogi arraila** , pureak eta abar bahetzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ogi birrindua edo **ogi arraila** xehatuko ogi zaharra da. Irintsua denez, plater askotan erabiltzen dute: arrautzaztatzeko, birrineztatzeko edo gratinatzeko. ETC-entziklopedia

---

arrailadura *iz* arraildura.

Luze gabe, ordea, eskuineko haitzean den **arrailadura** batetik ura ugari ateratzen dela ikusi dute bi ibiltariek. Pello Lizarralde

Arrailadura horretatik orno-muina eta meningeak irten daitezke eta larruazalaren azpian tumorea sortu, normalean bizkarraren behealdean. Berria - Gaiak

Bederatzi numeroek beren onera itzuli bitartean konposatu zuten sinfonia laburrak halabereko **arrailadura** eragin zion korridoreko isiltasunari. Aingeru Epaltza

---

arrailagarri *izond* bihotz-erdiragarria, bihotz-urragarria.

Nire begiek bildutako irudi **arrailagarriei** molde idatzi kutsugabea ematera lehiatuta ere, emaitzak parekotasun urruna zuen nik ikusiarekin: [...]. Aingeru Epaltza

---

arrailatu, arraila(tu), arrailatzen *(ETCn **13** agerraldi)* 1 du *ad* arraildu, pitzatu.

Ur-azala **arrailatzen** zuen ferryak laprast egiten zuen eta, mareak bere altzoan eramanik, astiro-astiro iristen zen ontziralekura. Alberto Barandiaren

Horman, kristal **arrailatu** baten atzetik bere suzko bihotza eskaintzen dio Ama Birjinak ostatuz dagoenari. Pello Lizarralde

Zeruko jainko guzien haserrea lurrera hustu zenean, zimiztak jota **arrailatutako** arbol madarikatu batek iradoki zuen kontua. Patziku Perurena

Murruak **arrailatuak** , lubakiak beteak eta dorrea eraitsia zen orduko. Aingeru Epaltza

2 zerbait zati txiki-txikietan birrindu.

Sukaldean, azenarioak **arrailatu** eta letxuga garbitzen, burua beste zerbaitetan izan zuten, familia bateko kideak elkar-ez-erasotzeko egoeratik, elkarri enbarazurik egin gabe elkar jasatetik egon daitezkeenik eta gertuen egon ziren. Harkaitz Cano

Gero, tomate maskal antzeko hori zatituko du aizto zorrotzenarekin, fideo gisako tipula zatiak eginez... bitartean, bainak egosi dira, eta orain labean daude, baratxuri eta urdaiazpikoz horniturik, gainera botatako gazta **arrailatua** urtu eta bere zapore lodia barruraino sar dakien. Pako Aristi

Botako zituen ehun gramo gurin, beste hainbeste azukre eta bi arrautza sopera handi batean, eta haiek ondo-ondo irabiatu ondoren limoi **arrailatua** nahastuko zion, eta irina, masa pixka bat loditu arte. Pako Aristi

---

arraildu, arrail(du), arrailtzen *(ETCn **522** agerraldi)* 1 da/du *ad* pitzatu, arrakalatu.

Arraildu egiten zen gaztaina nire haginen artean, eta zuku oretsu gustagarri bat hedatzen zen orduan aho guztira. Joxan Elosegi

Cartier eta sarjenta entseatzen dira zuen morala eta diziplina **arrail** ez daitezen. Xabier Montoia

Ahizpa gazteak, egundoko indarrarekin, makal itxura izan arren, ahizpa zaharra hain bortitz bultzatu zuen, ezen biak ala biak armairuaren gainean erori ziren, eta ispilua **arraildu** zuten. Karlos Zabala

Ahotsa ez zen gizaki batena; **arrailtzen** ari den ohol baten karraska zirudien. Lopez de Arana

Dionisori bihotza **arraildu** zitzaion, emaztearengana zuen maitasunaren neurrikoa baitzen haren heriotzak sorturiko mina. Felipe Juaristi

2 (era burutua izenondo gisa)

Joanttok gautu orduko jendez eta kez betetzen zen etxe **arraildu** batean zegoen sotoko zerritegi batera joateko usaia hartu zuen. Elena Touyarou

Nik trenbideetatik aditu nuen guardia postu batetik bestera zihoan seinalehotsa, mailu bat kanpai **arraildu** bati joka, eta berehala jakin nuen nire trena zela. Fernando Rey

Aspaldian begistatua nuen borda zaharra, bere ate akitua, ezker, kurrinka goxo batean dabilela, teilatuaren hegiak bonet higatu baten aterbe miserableak itaxura nasaiki ixurtzen duelarik bortaren zur gorri **arraildua**. Piarres Aintziart

Ohartu nintzen ezpainak **arrailduak** zituela. Marzel Etxehandi

Zatika eroriak ziren pareta haien erditik iragan zen, teilatu **arrailduan** urratu zulo handitik zeruari so egin zion, eta hasi zen zerbaiten bila, iraganarekin lotzen ahalko zuen zerbaiten xerkatzen... Elena Touyarou

Handik kanporatu gintuztelarik, mozkorrarena baino areago, ziminotuaren edo **arrailduaren** planta zekarren bulegariak. Aingeru Epaltza

Lehengo ortziraleko barregarrikeria errepika ez zedin, gelatik kanporatu baino lehen ikuskapen zorrotza egin nion neure buruari, armairuko ispilu zahar **arrailduan**. Aingeru Epaltza

3 ***mozkor arraildu*** erabat mozkorra. ik **arrail 3**.

Mozkor arraildua nago. Joxe Austin Arrieta

Eskaileretan behera abiatu zen, **mozkor arraildua** egonik ere, biraoka, hamasei solairuak oinez jaisteko prest. Joxe Austin Arrieta

Bi-biak gelditu ginen, besoz beso, **mozkor arrailduak** eta familiari bibaka. Aingeru Epaltza

· Nik gutxitan inor ikusi bezain **mozkor arraildurik**. Fernando Rey

Mozkor arrailtzen da ahal duen guziz, erran nahi baita argiarentzat erretzeko alkoola ukaiten duelarik. Marzel Etxehandi

Horien xapladak bizkarrean, eta horien baikortasuna, **mozkor-arrailtzen** diren arte. Joxe Austin Arrieta

4 ***bihotza arraildu***

Dionisori **bihotza arraildu** zitzaion, emaztearengana zuen maitasunaren neurrikoa baitzen haren heriotzak sorturiko mina, eta pentsatu zuen zerbait eraiki behar zuela haren oroimenez, ziur baitzekien ez zuela hura ahantzi bizi zen artean. Felipe Juaristi

Jacquesek eta bere emazte Luizak, Brasilen jaiotako emakume begi-eder eta ile-kirruak, ez zuten beste semerik ez beste alabarik, eta hasieran **bihotza arraildu** egin bazien alabaren erabakiak. Felipe Juaristi

5 ***botila arraildu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Botila arraildua perkusiozko musika tresna tradizional bat da. Botila igurtziz soinua ateratzeko, koilara bat, makilatxo bat... erabiltzen da. ETC-entziklopedia

---

arraildura **1** *iz* pitzadura, arrakala.

"Nautile" frantses urpekoak azkenean tapatuak ditu untziak zituen zilo eta **arraildura** guziak, orotarat hogoi bat. Herria

Sukaldeko harri lauzen arteko **arraildura** eta patarretaz ginen baliatzen kaniketan jostatzeko. Piarres Aintziart

Murruetako **arraildurak** petatxatu zituzten, lubaki betetzen hasiak sakondu, almena hondatuxeak berritu, barneko aldamioak sendotu eta oro har denborak egindako kalteak zuzendu edo estali. Aingeru Epaltza

Jabe gazteak fite ohartu dira mugitzen zela lurra, **arraildurak** agerturik paretetan. Herria

Laurehun granadak egin zuten eztanda bost egun eta gauez monastegiaren harresi gora eta gotorren kontra, beretan **arrailldurarik** batere ireki ezinean. Txillardegi

Ibaiko islara itzultzean, harresi erdi eroriaren **arrailduran** iguana bat ikusi dut, harresiarekin eta **arrailldurarekin** mimetizatua, hazizurriak dituela eta gargarak egiten. Joseba Sarrionandia

Patioko porlanaren **arrailduretan** sortzen dira loreak udaberriro. Xabier Montoia

Ganbaratxoan, argi-errainu batzuk sartzen ziren teila artetik eta hormako **arrailduretatik**. Juan Kruz Igerabide

Habeak **arraildurak** zituen, sakonak eta teatralak, eta hormarekin bat egiten zuen puntuan amaraun bat zeukan, atraktiboa, armiarmarik gabekoa. Unai Elorriaga

Itoizko urtegiko paretan **arraildurak**! Herria

Jauregiak garai hobeak ezagutu zituen, antza, Nikolak erositakoan **arrailduraz** josita baitzegoen eta desitxuratua, aurrealdean gupidagabe zabaldutako kareak eraikinaren benetako izaera estaltzen baitzuen, benetako nortasuna. Felipe Juaristi

Sukaldeko harri lauzen arteko **arraildura** eta patarretaz ginen baliatzen kaniketan jostatzeko. Piarres Aintziart

Zorigaitzaren tolesduretan ezkutatzen da zoriona, hala nola harribitxia meatzearen **arrailduran**. Patxi Zubizarreta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Mielga beldurgarria, buru biribilekoa, **arraildura** zabala idolo txinatar batena dirudien ahoan, saguzar haragitsuen hegal laburrak saihetsetan, itsaspeko haitzuloetako altxorrak zaunkaka gordetzeko ardura duen munstroa. Karlos Zabala

Arraildura handi batek eragotzi dizu bidea. Rafa Egiguren

Ezpainetan eta mihian dozenaka **arraildura** txiki. Unai Iturriaga

Zartatzearen ondorioz, untziak bazuen gaitzeko **arraildura**. Herria

3 irud/hed

Abertzaletasuna, eritasuna, bakartasuna, emazte batekilako amodioa, fedearen **arraildurak**, etsipena. Herria

Osoa da Mazellaren logika, **arrailldurarik** gabea. Xabier Montoia

Hori egiteagatik, txartxaka batekin aski kilikor nonbait, berehala pasatu gintuzten gaiztoen zakura, baten batek hartu zuen **arrailduraren** ondorio. Pello Salaburu

Euskal Herriko karlistek **arrailldurarik** gabeko gidaritza irmoa eskatzen zuten; foruen eta tradizioaren berrezarpenean, eta liberalak nagusitu baino lehenagoko egitura batugabe eta "errejionalaren" gainean eraikia. Txillardegi

Gerla zikin horrek ahuldu ninduela, otoitza ahantzirik edo, debrua sartu zitzaidala akidurak egin **arrailduratik**. Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arraildura batzu** (3); **zilo eta arraildura** (4)

---

arraileria *(orobat **arrailleria** g.er.) iz batez ere ipar* iseka, trufa, burla, txantxa.

Uste nuen, Nizias adiskide, umorea eskas zenuela, eta, mendeak urratu ahala, ohartzen naiz ez dela hala: **arraileria** maite duzu. Itxaro Borda

Arraileria maite zuen eta haren etxean ongi etorria segur eta behar bazen ez bakarrik elez. Herria

Lanera buhaka jiten eta egunean zehar dena **arraileria** eta zinkurina ari zen, aldizka alfer estakuru, hainbat non Sebasen irudiko hondarrean kanporatzea merezitako gaztigua zitekeen. Itxaro Borda

Bere buruaren ez salatzea biziki neke izan zitzaion eta, azen ontzeko, irriz hartu behar ukan zuen guardia baten **arraileria**, honek La Louisette, gillotinari ematen zitzaion izen herrikoietarik batekin hitz jokoa egin zuelarik. Elena Touyarou

Epaileak zer nahi erran zidan: fini zirela jostetak, **arraileriak**, plazerrak, Mundua etsai bat zela, lur honetako bizia balore gabekoa, deabrua non nahi ari zela bere lan tzarretan. Piarres Aintziart

Populazioa bere irri eta **arraileria** zozoei uztartua utziz, Joanesek ez zituen gutxienez militanteak desesperatu nahi eta derrigorrez baikor agertzen zen. Itxaro Borda

Horregatik **arrailerian** jarduten da, barre egiten da, txantxak egiten dira, graziaz hitz egiten da, eta graziaz mintzatzen ikasten. Josu Zabaleta

Zinez giro berezia, jendea han biltzen zen, eleketa egoiten, berri kondan eta berdin **arrailerian** . Herria

"Egundaino gazte ez izana gatik zuhaur, ez zitzaitzun mugimendua laket" erran dit aldi batez Gilenek, **arraileriaz** , eta adiskide apeza inarrosi nahiz. Piarres Aintziart

Denak gogotik hasiak, ala Biscouby eta berdin ere Muscarditz burutik buru, **arrailleria** eta josteta guti zen. Herria

Ez zuen bererik salatuko denaden, eremanen zuen bere saila halere aintzina baina **arrailleria** guti egun hartan, bere mugak baititu gizon xoil baten ahalmenak akiduraren higaduran. Herria

---

arrailgarri *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) izond* pitzatzen duena, arrakalatzen duena.

Sulama laburren dirdira hainbat aldiz agertu zen Cosmao gurutzontziko kanoien muturrean, eta Agadirko kashban lehertzen ziren obusen burrunba **arrailgarriak** errotik inarrosten zuen Sus ibaiaren harana. ETC-literatura, saiakera

Gizonezkoak isilik, buru-has; emakumeak buruzapiak bizkarrera eraitsirik, buruko ileak tiraka erauzten eta oihu **arrailgarriak** botatzen. ETC-literatura, saiakera

Urtero izaten da osterantzeko mozorrorik, baina klasikoak, hots: printzesa, sorgin, abade/moja, pailazo, txiro edota amerikar indioz janztea da ekintzarik **arrailgarriena** oraindik ere. ETC-prentsa

Arrailgarria da nerabe ziren gizon horiek negarrari ezin eutsirik jazotakoa kontatzen ikustea. ETC-prentsa

---

arraillant *izond ipar* alaia.

Emazte ernea, **arraillanta** , omore onekoa, ez daukate ezagutu duten guziek ahanztekoa hain zen bere adinean oraino airosa eta zirtolaria. Herria

Adiskideen artean, nehor **arraillant** eta jostakinik balinbazen, hura bai halakoa zela! Herria

Hots, elgar iduriak balinbadira maiz elgarretaratzen, ezin uka Lafittek askotan gizon on, sano, **arraillant** eta bihotz haundiko horietarik zituela bere inguruan. Baitzoatzin kantari eta jostakin, Arradoi, Jara, edo Leizaratzurat buruz, zirtolari eta **arraillant** goizetik, zeren ez baitzen egun hori besteak bezalako eguna. Herria

---

arrailleria ik **arraileria**.

---

arrailoba *iz* norbaiten anaiaren edo ahizparen biloba.

Bai Martin iloba, bai eta Jan Pierre **arrailoba** lagundu zituen diruz apezgai zirelarik. Xipri Arbelbide

---

arrailtzear *adlag* berriro hiltzear.

Beinat **arrailtzear** zen, Graxi Theok eta Peterrek osatzen zuten taldean sartu zenean. Itxaro Borda

---

arrain 1 *iz (ETCn **56.905** agerraldi)* animalia ornoduna, uretan bizi dena eta hegalak dituena, arnasa zakatzen bidez hartzen duena.

Arraintzak ere garrantzia handia du, **arraina** dutelarik elikagai nagusia irrisatik landa. Herria

-Adiskide gazte, halako izen batekin hemen negozioetan aritzeko, ur handitako **arraina** izan behar zenuke. Matías Múgica

Eskatuz gero, Senpek beti asmatuko duela **arraina** ekartzen. Hasier Etxeberria

Halere, ur-hegiak jateko hautak diren **arrainez** estaliak dira, baina ez dira bertze itsasoetan bezalakoak. Aurelia Arkotxa

Zoriontsua naiz, zoriontsua guztiz eta erabat, nola **arraina** uretan. Hasier Etxeberria

Gure begien azpian Ze ibaiko urak igarotzen ziren; harkaitzez eta zurrunbiloz beteriko ibaia zen, **arrain** ugarikoa. Juan Kruz Igerabide

Arrainak zituen urmaela zen, eta iturritzat hartu nuena estatua bat zen. Fernando Rey

Orienteko apoteosia, aizu: karilioi eolikoak, ispiluak, bionboak, portzelanak, buda zoriontsuak, koloretako **arrainak** ... hitz batean, Txinako astea Corte Inglesen. Patxi Iturritegi

Zuhaitzei buruz ere mintzatu zen, nola Libanoko zedroez hala horma-harrietan ernetzen den itze belarraz; orobat, abere, hegazti, narrasti eta **arrainei** buruz ere. Elizen arteko biblia

Eta itsasoko **arrain** guztiak bilduta ere ez. Jose Antonio Mujika

Halatan, ondoko ekintza ugarietan **arraina** uretan bezala zebilen: eliza, banku edo posta-bulegoak erasotzen zituzten, autoz desagertzen ziren eta gaua Pigalleko putetxean bukatzen zuten. Itxaro Borda

Intelektualki edo razionalki, halaxe **arraina** sareetan, problemak berdintsu atrapatuta gaude denok: biolentziaren izugarriak, balioak erlatiboak direlako horrekin inor ez gaitu lasai uzten. Joxe Azurmendi

Ibaian **arrain** ugari egoten da: zarboak, tenkak, lutxo jatunak, karpa zilarkarak, perka hegalgorriak, aingira irristakorrak eta, batzuetan, lanparda txikiek zirikatuta, gaizkata sendoak ere igotzen dira ibaian gora, batzuk ehun eta berrogeita hamar kilokoak eta gehiagokoak ere. Koldo Biguri

Batak **arrainik** jan nahi ez, besteak frutarik edo esnerik probatu ere ez, beste bati gaztak botalarria egiten, eta jateko adina xelebrekeria. Iñaki Segurola

Pentsatu nuen **arrainaren** usain desatseginak ere izango zuela zerikusirik eltxoen presentziarekin. Anjel Lertxundi

-Usain ona du **arrain** horrek - esan nion. Lander Garro

Arrainen eta narrastien arteko trantsizioa erakusten duen animalia baten fosila topatu dute Kanadako iparraldean, uretako eta lehorreko piztien arteko katebegi galdua . Berria - Gaiak

Kantauri itsasoak hegaluzearentzat ezinbestekoak diren bi baldintza betetzen ditu: batetik, janaria ugaria da, **arraina** bertan ase arte elikatzeko adinakoa. Berria - Ekonomia

Amuan katigatuta dagoen uretakoa, berdin **arrain** zein txibia, preso dago. Iñigo Aranbarri

Ohe inguruan jarri ziren gonbidatu guztiak eta **arrainak** bezala hasi ziren jaten. Unai Elorriaga

Sarri joan ohi gara **arrainei** so egitera. Urtzi Urrutikoetxea

Hala, beraz, eta bi aldiz pentsatu gabe, otarre bat karramarro eta **arrainez** bete eta aldapan gora abiatu zen. Joanes Urkixo

Biharamun goizean, auzoa, Bidegileneko Piarre, goixtiarragoa izanez, hurbildu zen errekara, Luro-ren pertoletan zeuden **arrainak** biltzen zituela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Domingo Abaurre bere aita zenaren sare eta pertoletara itzuli zen, eta gazteluaren inguruko ur-zi-rripa guztiak **arrainez** hustu. Aingeru Epaltza

Eta bazirudien harridura horren eraginez zabaltzen zuela ahoa, hatsanka, zianosiak urdinduriko ezpainak **arrain** baten modura biribilduta. Ramon Saizarbitoria

Hegazti batzuk bereziki hezten dituzte, uretara tximista bezala joan eta **arraina** atzeman dezaten. Gotzon Garate

Arrainik handiena herorrek eraman duk, horratik. Aingeru Epaltza

Arraina utzi dizuet gauerako. Eider Rodriguez

Sare pelagikoak, esaterako, ahalik eta **arrain** gehien harrapatzeko asmatu ziren, baina ez dago sarerik, ez pelagiko ez magikorik, arrainik gabe geratu den itsasoa atzera berriz arrainez bizi-berrituko duenik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Nire esku utzi dituzte salgai horiek, eta zuk **arrainetara** botatzea nahi! Jon Muñoz

Basoko txerrikiari; eltzeko janariari; garrangako **arrainari** ; azukre-kanaberari, euriari eta aulki kulunkariei. Anton Garikano

Dorpeena da egoera latza delarik, ekaitza, denbora txarra, hotza... eta ez **arrainik** atzemaitea... Menane Oxandabaratz

Bai, egun bizi dugun etorkizun honen zaporea ere - egungo sagar eta **arrain** askorekin gertatzen den antzera -, ez omen da garai batekoa. Iñaki Heras

Arrain bat baino bustiago zatoz. Joxemari Urteaga

Amen altzoan mozten zieten haurrei lepoa, eta ume asko zatikatu zituzten, **arrainak** balira bezalaxe... eta ez zen izan naturaz kontrako heriotzarik jende hari eragin ez zitzaionik... ". Koro Navarro

Han txabola bat egin zuen, eta baratzeko berdurak, arroza eta Siang ibaiko arrantzaleek emandako **arrainak** janez bizi izan zen. Pako Aristi

Horko kiratsa, petrolioarena ez denean **arrainarena** , kiratsa da, gero. Joxe Austin Arrieta

Fruta eta berdurak aspaldi amaitu zitzaizkigun, baita okela eta **arraina** ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Preso harrapatutako guztiak CamagŸeyra eraman zituzten espainolek, oraindik oso ondo jakin gabe zein zen atzaparretan zuten **arraina** . J.M. Olaizola "Txiliku"

Arrain hau harrapatzeko erabiltzen den erak garbi adierazten du bere lizunkeria. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arrainak fresko iristen ziren portura eta berak **arrainak** garraiatu ohi zituen ontzietatik gurdietara. Harkaitz Cano

Txori kaiolatuak eta katu fereka zaleak dituzte gogoko zaharrek, eta txakur manaerrazak, eta **arrainak** . Imanol Zurutuza

Kupel batean dauden **arrainei** tiro egitea bezala, pentsatzen du. Oskar Arana

2 (izenondoekin)

Ahalegin handirik gabe irentsi zuen amua **arrain** izerditsu eta gizenak. Sonia Gonzalez

Arrain eder bi bahitzeko aukera genuela komentatu zuten nire ondoan. Koldo Izagirre

Arrain fresko bakarra igelak ziren, gauza barregarri samarra, elikagai gisa hartzeko. Josu Zabaleta

Eguzkipean eta sobera ur izan gabe, irensteko zailak dituzue **arrain** gatzatuak. Xabier Montoia

Burua goratu duenean pasabide zintzilikarian geldirik daudenei begiak tinkatu dizkiela irudi lezakeen arren, laster ezagun da arrantzalearen begietan oraindik uraren uhinak eta izarniadura islatzen direla eta **arrain** iheskor baten itzalak estaltzen diola aurpegia. Pello Lizarralde

Aparra zerion ahotik eta **arrain** hilarenak ziren haren begiak. Harkaitz Cano

Lasterka, eraikin bateko hirugarren pisura igo zen: **arrain** frijituak eta gasak isuritako usaina nagusi zen bertan. Lopez de Arana

Otarraina, urdaiazpikoa, karramarroa, **arrain** gorriak eta fruitu gorriak oro, ezin zitezkeen jan. Pello Zabala

Horretan ari zela, **arrain** handi batek egin zion salto uretatik, oina irentsi nahirik. Jose Antonio Mujika

Auzo batean burdinazko tresnak saltzen zituzten, beste batean zurezkoak; batean larruak, eta beste batean artileak; batean oihalak, eta beste batean **arrain** sikuak. Karlos Zabala

Eta badiako ahots ezkutuak eta batelen mugimenduak kontrabandozkoak bezala izango dira, eta bonbilla argitxoak **arrain** gorrien moduan islatuko dira itsasoaren ilunean. Joseba Sarrionandia

Afrikatik heldu berria behar zuen haize erreak **arrain** ustel eta zarama hatsa zekarkigun. Xabier Montoia

Neska gazte bat ito du nigan, eta nigan hartzen dio gaina/andre zahar batek egunez egun, **arrain** izugarri baten modura. Bernardo Atxaga

Berak maitasun handiz prestaturiko arroza eta oilaskoa gogo handiz jan nituen, uharteren batean luzaro **arrain** gordina eta kokoak bakarrik jaten egon eta azkenik etxera itzuli banintz bezala. Aitor Arana

Haren burdinazko kakoak heriotza-usaineko zirkulua marrazten zuen uretan, eta mutikoek **arrain** beldurtuak bezala egiten zuten ihes handik. Julen Gabiria

Barnealdea zeta zeru-urdinez forratua zuen kotxe baten atzealdean jarririk, leiho lausotuetan barrena hirira begiratzen zuen: **arrain** lodi baten tankera zeukan hiriak argipean. Xabier Olarra

Horien artean leku berezia du **arrain** itzel handia harrapatu ondoren hura portura ekarri orduko zeroiek jan zioten arrantzale zaharrarena, old man harexena. Edorta Jimenez

Poltsa batean zituen bere ondasun preziatuenak: bi pasaporteak, aldatzeko beste galtza-pare lehor bat, eta eguneroko anoa eskasetik gordeta etxean zituzten janari apurrak (ogi-kozkor lehorrak eta **arrain** ketu pixka bat). J.M. Olaizola "Txiliku"

Han, eguneko edozein ordutan emango zizkizuten erremolatxa potaje gorri-gorria, **arrain** errea edo gisadua. Matías Múgica

Arrain hil bat ikusten ahal zen aldi bakoitzean nigarrez hasten zinen. Ramuntxo Etxeberri

Borreroak itsu-itsuan sinesten du metempsikosian, bere begiekin ikusi baititu zendu berrien arimak urretxindor urdin, **arrain** neoklasiko edo landare ibiltari bihurtzen. Karlos Linazasoro

Aire aldatu berriak, **arrain** gazituaren usaina. Anjel Lertxundi

Bezperan agertu zen etxean, **arrain** tropikalak ekartzera. Patxi Iturritegi

Henry irriz ari zen, itsas ertzeko **arrain** malgu eta zurpail bilakatu Euskal Elkarteen Ordezkariaren sesitzeaz ohartu gabe. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aberatsa izan bazen eta ehun diru kostatzen zen **arrain** -afari bat egin bazuen, nahiz eta pobreak gosez hiltzen utzi, bere eginbehar guztiak bete zituen gizona izango zen. Juan Martin Elexpuru

Kaian, emazte larri, papo-handi batzuk **arrain** -saltzale zeuden, dena oihu eta irri, solasa nasai bezain gizen! Janbattitt Dirassar

Angelu zabaleko argazki kamera batek bezala, **arrain** -begiko lentea duen kamera batek bezala. Harkaitz Cano

Ezaguna nuen nik Tampico aspaldiskotik, behinola han egindako eta bizi naizen artean sekula ahantziko ez dudan **arrain** -jate pozoitsu batengatik. Joxe Austin Arrieta

Bazkaltzeko, bertako **arrain** -jatetxe bat begiz jo genuen, eta hantxe jaten ari ginen bitartean, ezkutuka begiratzen nion tarteka Virgili. Xabier Olarra

Aipatu zidan oraino Ceylan uharteko **arrain** -andrea, 1835aren inguruan, Antonio Abbadiak (aita euskalduna, ama irlandarra) Aurelia Arkotxa

Itsas-lamiak **arrain** -ahoz xukatu zizkidan begiak. Karlos Linazasoro

Goizero Bruselan irudien enkante moduko bat izaten da: nazioarteko agentziek eta TB kateek berton jartzen dituzte ikusgai euren produkturik freskoenak, meroak eta hegaluzeak goizero **arrain** -alondegian erakusten diren bezala. Txema Ramirez de la Piscina

Ranchin batez ere, **arrain** gustua duen barazkia ematen ziguten maiz: "karaila" du izena. Gotzon Garate

Noraren aitak bi zaldien ipurmasailetan kolpe adeitsuak eman, eta kalesa geldiarazi zuen, errenkan zeuden mandagurdiak baino poxin bat lehentxeago, **arrain** -kaxa pila batzuen artean erdi ezkutaturik. Anjel Lertxundi

Zorionez, ostirala zen pare-parean, eta **arrain** -zati batzuk besterik ez zen benta-etxe guztian; Gaztela aldean "abadejo" deitzen diote, Andaluzian "bakallao", beste leku batzuetan "kuradillo" eta zenbaitetan "trutxuela" (amuarrain txikia). Patxi Ezkiaga

Suntsitua zen, ordea, arrastorik utzi gabe: eta haurtzaroko **arrain** -garbitzaile zalapartariak ere, ahantzi egin dira jadanik. Txillardegi

Sukaldean beste inon baino trinkoagoa zen **arrain** -usaina. Anjel Lertxundi

Arrain usaina dauka. Eider Rodriguez

[...] krokodiloak eta antzeko beste pizti eta **arrain** espezie batzuk, hipopotamoak izan ezik. Santiago Iruretagoiena

4 ***apiril-arrain***

Apiril izena erantsi izan zaio, baita ere, garaitsu honetako amuarrain bati, izokinari juxtu: **apiril-arrain** deitu izan diote. Pello Zabala

5 ***apirileko arrain*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***17*** *agerraldi)*

Apirileko arraina apirilaren 1ean egiten den txantxa da, batez ere lagun, senide edo ezagunei, baina baita ere hedabidetan. ETC-entziklopedia

Askok **apirileko arraina** zela ere pentsatu zuen, adar jotze bat zela, baina erabakia biziki seriosa eta pentsatua zen noski." Zerk behartu zituen erabaki hori hartzera? ETC-literatura, saiakera

Frantzian eta Italian "**apirileko arraina** " izaten omen da; Brasilen "dia da mentira"; Inglaterran eta Estatubatueta izeneko mundutxo horretan "april fool's day", apirileko

tontoen eguna; Alemanian ezdakitzer, Japonen badakitzer... ETC-literatura, saiakera

Erotikaren eskuliburu sona handiko hura, Kamasutra euskaraz argitaratu berria zela azaldu zen **apirileko arraina** bezala (abenduaren 28an, oker ez banago) egunkari batean aspaldixko, Egin ote zenetz. ETC-literatura, saiakera

Ez gara txantxetan ari, nahiz eta apirilaren 1ean, Ipar Euskal Herri eta Frantziar Estatuan '**apirileko arrain** eguna" izan (Hego Euskal Herri eta Espainar Estatuan abenduaren 28ko inuzente egunaren parekoa). ETC-prentsa

Apirileko arraina urtarrilean? Frantziako lehen ministro Dominique de Villepinek osasun eta hezkuntza eskubideen maila berean jarriko du etxebizitza eskubidea. ETC-prentsa

Ez zen halakorik gertatu, **apirileko arraina** zen. ETC-prentsa

6 *armiarma-arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Armiarma-arrain Xabiroi arrunta, "**Armiarma-arrain** Trachinus araneus" Georges Cuvier Cuvier, 1829. ETC-entziklopedia

7 *arrain adarbakar* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arrain adarbakarra ("Naso") Acanthuridae familiako genero baten izen arrunta. ETC-entziklopedia

8 *arrain budin* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Eta dagoeneko hainbat jaki gertatu eta dastatu dituzte: **arrain budina**, patatak aliolirekin eta piperrak bakailaoz beteta, besteak beste. ETC-prentsa

Arrain budina, edo zehazkiago legatz budina batez ere legatzarekin egiten delako, arrain zuriarekin egiten den budina da, hotza ala beroa zerbitzatzen dena. ETC-entziklopedia

9 *arrain egun*

Ez, oraindik ez da **arrain eguna**. Berria - Kirola

Chiracen hitzaldiaz ere mintzatu da: "**Arrain eguna** da herenegun, eta gaia serioa ez balitz, hitzaldia horri zegokiola pentsatuko nuke». Berria - Ekonomia

10 *arrain hazkuntza*

Argindarra ekoizteko eta gaiak garraiatzeko baliatzen dute, baita ureztatzerako eta **arrain hazkuntzarako**. Berria - Mundua

11 *arrain-haztegi*

Milioika pertsona kaltetu eta etxe gabe utzi bazituen ere, zenbaiti mesede egin zien euriteak, hainbat **arrain-haztegik** gainezka egin eta arrain andanak alde egin baitzuten, gose zeuden herritarren zorionerako. Berria - Mundua

Animaliok belarjaleak dira, eta gure ustez, litekeena da oilo etxaldeetatik ateratako zirinekin ongarrituriko belardietan edo **arrain-haztegietan** kutsatu izana. Berria - Gaiak

12 *arrain hegalari* *(corpusean ez dago; ETCn **119** agerraldi)*

Arrain hegalari (Exocoetidae) arrain beloniformeen familiaren kideen izen arrunta da, mundu osoko ur tropikal eta azpitropikaletan bizi dena. ETC-entziklopedia

Ez al dizute esan **arrain hegalari** aldra bat ere ikusi nuela, denak burdinaz eginak, zuhaitz batean pausaturik? ETC-literatura, saiakera

Rose Bustamente, Vera Candidaren amaren aldeko amona, itsasalde honetako **arrain hegalarien** arrantzalerik onena izatera iritsi baino lehen, Vatapunako putarik ederrena izan zen. ETC-literatura, saiakera

Orduantxe ikusi nituen lehen aldiz hareazko basamortu gaitzak, soldadu arabiarrak ganbeluetan, palmondoak datilez beterik, **arrain hegalariak** eta ehundaka beste holako miresgarri. ETC-literatura, saiakera

Arrain hegalariak ikusi ditugu! ETC-literatura, saiakera

Arrain hegalari bakan batzuk izateak ez du frogatzen arrainak oro har hegaz egiteko sortuak izan zirenik, edo funtsean oso pozik ez daudenik uraren gainazalaren azpian egoteaz, betiko eguzkitik eta argitik urrun. ETC-literatura, saiakera

Baleak ikusi dituen marinel gihartsuak, / **arrain hegalariak** ikusi eta Demerara eta Boli Kosta/ bezain toki urrunetara heldu denak / abisu emango die ipuina entzutera hurbildu zaizkion haurrei / alkitranaren usaina dutela ozeano guztiek. ETC-prentsa

Arrain hegalariak bagina sikiera, ura kanpotik ikusteko, une batez besterik ez balitz ere. ETC-prentsa

Arrain hegalariek harritu dute gehien Alberdi. ETC-prentsa

Hala nola sagardoa edaten ari ziren bi emakume, **arrain hegalariak**, musuka ari ziren neskak... ikus zitezkeen hormairudian. ETC-prentsa

Arrain hegalari bat uretatik ateratzen denean, berarentzat guztiz adaptatiboa da berriz uretan sartzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortaz, **arrain hegalariak** ere berdin jokatzen du, baina uretatik kanpo askoz denbora laburrago egon ohi da, ezustekorik ez bada, noski. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 *arrain hezur*

Perspektiba: ezkerrean, ihes-puntu zentraleko perspektiba; eskuinean, **arrain-hezurrezko** perspektiba. Josu Zabaleta

Gizakiekin ere gertatu izan da **arrain hezurra** zintzurrean trabeskatu eta kirofanora eraman beharra izatea. Gotzon Garate

Elikagaien industriak, dena den, hasitako bideari jarraituko dio eta guk arrain osoaren alternatibak kontsumitzen ikasten hasi beharko dugu: krilla, **arrain-hezur**, buru eta gainerako kondarrak, era aproposetan egokituak (kroketak, ziriak, surimiak, etab.). Edorta Agirre

1922an, "ipurdiak arin eta **arrain hezurrak** bezalako meheak" baziren, 1937an, berriz, Sulak Nelen matrimonioa galarazi zuen, haren gizonarekin larrutan eginda. Pablo Sastre

Hortzetako tarteak **arrain hezur** batekin garbitzen begiratu du. Eider Rodriguez

14 *arrain hezurdun* *(corpusean ez dago; ETCn **51** agerraldi)*

Gaur egungo **arrain hezurdunen** artean, berriz, ia hogei mila espezie daude. ETC-literatura, saiakera

Actinopteri osteiktie **arrain hezurdunen** taldea da. ETC-entziklopedia

Egitura horiek, lehenik eta behin, **arrain hezurdunetan** garatu ziren. ETC-entziklopedia

15 *arrain hiruarantza* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Arrain hiruarantza ("Gasterosteus aculeatus") arantzarrain, gasterosteidae familiako arraina da, Europan, Asiako iparraldean eta Ipar Amerikan bizi dena. ETC-entziklopedia

Adibidez, obrak ez dira Bolueko hezegunera helduko, bertan **arrain hiruarantza** Gasterosteus aculeatus egon daitekeelako eta egoera horrek neurri bereziak eskatzen dituelako. ETC-prentsa

Horren bidez, **arrain hiruarantza** babesteko 2008an martxan jarri zen egitasmoa aldatzea eskatu zioten foru aldundiari. ETC-prentsa

Adibidez, kondizio-sorta baten pean Ahatea eta **Arrain Hiruarantza** dira egonkorrak. ETC-literatura, saiakera

16 *arrain irin*

Madrilerat igorri ere dituzte irinak analizatzerat eta handik jakin da abere irin eta **arrain irinak** bazituztela. Herria

Ez nahastu poesia **arrain-irinarekin**. Bernardo Atxaga

Gauzak toneladaka gustatzen bazaizkizue, eraman **arrain-irinez** betetako kamioi bat etxera, eta eman bakea poesiari. Bernardo Atxaga

17 *arrain jangarri* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Eta **arrain 'jangarrien'** erraiak, denak putzura. ETC-prentsa

Arrain jangarriak baztertuz, fauna basatiaren legez kanpoko salerosketak urtean 10.000 milioi dolar mugitzen ditu. ETC-entziklopedia

18 *arrain kartilaginoso* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ornodun gehienetan notokorda bizkarrezurrak ordezkatzen du, eta kartilagoa hezurrek ordezkatzen dute helduaroan. Hala ere, badira salbuespenak, adibidez Chondrichthyes arrain klasea, **arrain kartilaginoso** ere deituak. ETC-entziklopedia

19 *arrain katu* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Ur horietako arrain arrunt guztiak ere suntsituak izan ziren: zamoa, bufalo-arraina, Aplodinotus grunniens, Dorosoma cepedianuma eta **arrain katua**. ETC-literatura,

saiakera

Beraz, **arrain katu** deitu zaie (ez dakit era egokian) edo siluru, ia mundu guztian zabalduta dauden espezie ugariko arrain horiei. ETC-literatura, saiakera

Esaterako, Francis de Laporte de Castelnau naturalista frantsesak esan zuen 1861eko Singapurreko arrain-jasa **arrain katuen** migrazio garaian gertatu zela. ETC-entziklopedia

Elurretako karramarroa, izokin basatia, barbarina eta **arrain katua** ere asko erabiltzen dituzte. ETC-prentsa

Halaber, itsasontziaren antzinatasuna ezagutzeko, **arrain katu** baten aztarnei eginiko azterketa ezinbestekoa izan dela azaldu du. ETC-prentsa

Bestela, betiko moduan, itsas hondo arretan bazkatuko dira **arrain-katu** sarraskijaleak, lau haizeek harrotutako itsasoaren bazterrean bizi den herri ttiki-ttikiaren zoritxar eta atsekaberako. ETC-prentsa

Egiptoarrek Niloko **arrain katua** edo silurua erabiltzen zuten migrainen tratamendurako. ETC-prentsa

20 *arrain kirurgialari* *(corpusean ez dago; ETCn **82** agerraldi)*

Arrain kirurgialaria ("Acanthurus") Acanthuridae familiako genero baten izen arrunta. Familiaren genero tipoa da eta ia familiako kide erdiek osatzen dute generoa. ETC-entziklopedia

Zenbait prokarioto handi - **arrain kirurgialariaren** sinbiontea den Epulopiscium fishelsoni, kasu. ETC-zientzia, zuzenbidea

21 *arrain kontserbategi*

Ziburun, auzogune berri bat sortzekoa da lehengo arrain-**kontserbutegiak** eta bereziki Saupiquet lantegia ziren tokian. Herria

Hori, lehengo arrain **kontserbutegien** eremuan. Herria

Gaitzeko erakusketa muntatu zuten [...] arrantzaleak gogoan, bai eta arrain-**kontserbutegietako** langileak. Herria

22 *arrain kurrinkari* *(corpusean ez dago; ETCn **134** agerraldi)*

Arrain kurrinkaria Hemulidae arrain Perciformes pertziformeen familiako kideen izen arrunta da. ETC-entziklopedia

Arrainen barruko **Arrain kurrinkari** Haemulidae familian sailkatzen da. ETC-entziklopedia

23 *arrain-ontzi*

Tom eta Jerry, bi arrain laranja haiek, han geratu ziren **arrain-ontzian** bueltaka, ur handiagoen zain. Harkaitz Cano

Atea ixtean **arrain-ontziaren** irudia etorri zitzaion burura. Fernando Morillo

Atzo, Sestrieresen 1999an eta Hautacamen 2000an urtean bezala, euria egin zuen goian behean eta Armstrongen **arrain-ontzi** bihurtu ziren Pirinioak. Berria - Kirola

Gaur gauez ere ondoko gelara joan gara, Fleischmannen **arrain-ontzia** mirestera. Urtzi Urrutikoetxea

Ronen makila magikoa **arrain-ontzi** baten gainean zegoen, eta ontzia igel-arrautzez betea leiho-ertzean, eta ondoan Scabbers arratoi gris lodia, lozorroan eguzkiak jotzen zuen gune batean. Iñaki Mendiguren

Ez dira semeak etxeko **arrain-ontzian** dituen arrain tropikal txiki koloretsu horietakoak, hortz zorrotzeko beste horiek baizik, eta hor dabiltza, horman hara-hona, bisitariek ekarritako lore-sorten artean. Imanol Zurutuza

Eta, noski, txoko horretan arrain eta itsaskiak daude marraztuta, itsasoan igeri dabiltzala, benetako **arrain ontzia** izango balitz bezala. Berria - Kultura

Han dira **arrain-ontzi** txikiak, oihal koadroa daramatenak, kostaldez kostalde ibiltzera ohituak, kostaldeko gorabeherei egokituak, nola lanperna haitzetara. Felipe Juaristi

24 *arrain plater* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Prestatzen ditudan **arrain plater** guztiak maite ditu. ETC-prentsa

Nahiz eta sukaldaritza euskal-amerikarrak bere estilo propioa izan, artzainen kanpamendutan egiten zen janarian oinarritua, zopa eta **arrain plater** askok, geroago Euskal Herrian dastatu izan dudan zaporea zuen. ETC-prentsa

Gainera, haragi eta **arrain plateren** lagungarri ere izan daitezke bere horretan apur bat zartaginean pasatuta edo barazki hornigaietan, berenjena, kuiatxo, azenario eta ilarrekin batera. ETC-prentsa

Egur bakoitzak bere usaina sortzen du: arteak, oso suabea eta garbia, **arrain plater** bereziak egiteko. ETC-prentsa

Zerbitzariak **arrain plater** bana jarri zien aurrez aurre. ETC-literatura, saiakera

Bezeroak **arrain-platera** jaten ari direnean eta Tyler pasta-platereko platerak urez pasatzen ari den bitartean, etxeko nagusi andrea sartu da sukaldean. ETC-literatura, saiakera

Bakailao eta **arrain plateren** artean Bizkaiko erara edo Bilboko erara izenondoa duten errezeta asko daude, hala nola, bakailaoa Bizkaiko erara, legatza Bilboko erara, bisigua Bilboko erara, kabratxoa Bilboko erara. ETC-entziklopedia

Ogia, arroza edo patataren laguntzaz ere ager daiteke eta normalean okela edo **arrain plater** bati laguntzen dio. ETC-entziklopedia

25 *arrain pulmonatu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Justu **arrain pulmonatuen** eta beraien ondorio ebolutiboei buruz hitz egin behar nion egunean! Lankide eta gurasoen esanetan, arrandegia utzi eta negozio bat ipini omen du Donostiako Moraza kaleko lokal txiki batean. ETC-prentsa

26 *arrain salda* *(corpusean ez dago; ETCn **70** agerraldi)*

Lurruna zerion plater bero bat esperoan zuen mahai gainean: **arrain-salda**. ETC-literatura, saiakera

Oliba olioa eta **arrain salda** gaineratu, eta pixka bat berotuko dugu, irakin gabe. ETC-prentsa

Larunbatean, eguerditan, Miarritzeko elkarteen artean **arrain salda** lehiaketa, merkatu estalian. ETC-prentsa

Erantsi liro erdi ur eta basokada bat **arrain salda**, baldin baduzu. ETC-prentsa

Monica Benitok eta Olatz Fernandezek, tipula eta piperren ostean bota zituzten patatak eta **arrain salda**: "Garrantzitsuena saltsa biziarekin egindako marmitakoa lortzea da", esan zuten. ETC-prentsa

Arrain salda ere gehitu dute eltzera, eta, segidan, urraburua zatitzeari ekin diote haurrek. ETC-prentsa

Egun horretan, txorizo pintxoaz eta saldaz gain, **arrain salda**, arrain paella eta legatz pintxoa egoten da: nahi duenak bijilia egiten du, eta nahi ez duenak, ez. ETC-prentsa

Japoniako sukaldaritzan asko erabiltzen duten **arrain salda** da. ETC-entziklopedia

Arrain salda ongi egina badago gomendatua ez egon arren, noizbehinka limoi eta/edo aliolia ere gehitzen zaizkio. ETC-entziklopedia

Krabarroka edo itsas kabraren haragia **arrain salda** batean egosten da minutu batzuetan (errezeta batzuek lurrunean egosten dute), arantzetako pozoia desaktibatzeko. ETC-entziklopedia

27 *arrain saltsaki*

Ttoro **arrain saltsaki** prestatzaileen lehiaketan, Denekin taldekoak deneri nagusitu. Herria

Larunbat goizean, merkatugunean, ttoro **arrain saltsaki** prestatzaileen arteko lehiaketa. Herria

28 *arrain saltzaile*

Augusteren begitarte zurbila ikusten zuen berriz, **arrain saltzaileen** sudur apaldua; ama Méhudinen hitzez oroitzen zen, Normandiarraren isiltasunaz, urdaitegi hutsaz. Karlos Zabala

Joxanek irribarre apalez begiratu dio, **arrain saltzailea** esaten ari dena ulertzen duen keinuaz, bat-bateko hitz aspertua eskertuko balio bezala. Paddy Rekalde

- Nik argi daukat - zigarroaz ke zirimolak egiten jarraitzen du **arrain saltzaileak** -, jo eta akabatu egingo nituzke lazun higuingarri hauek guztiak, edozelan akabatuta ere, benetan... Paddy Rekalde

Kontatu zigun ezen konde frantses batek kontatu ziola, Frantziako eta Espainiako errege-infantak ezkondu ziren egun berean, hain zuzen ere, nola behin batean **arrain-saltzaile** baten saskitik itzuri zen karramarro bat. Joan Mari Irigoien

Arrantzaleek, **arrain saltzaileek**, kaleko saltzaileek edo arropa garbitzen zeuden emakumeek abesten omen zuten. Berria - Kultura

Arrain saltzailea astearte guziz 11etarik goiti izanen da Plazan. Herria

Harakinak alemanak ziren, gizon handi sendoak, okela papera legez mozten dutenak, oso dotore, baiki; **arrain-saltzaileak** holandarrak, Amsterdamekoak, agian, gizon bibotedunak, barre eta txantxa ugari zerabiltzatenak. Felipe Juaristi

Arrain saltzaileak zein izen jarriko dioten galdetu dio. Eider Rodriguez

Merkatu-plazako **arrain-saltzaile** larriagoarekin bere lehen esperientzia homerikoaren ondotik, ezin konpreniturik geunden zer ikus zezakeen Charlyk saindu-jale motz-estu horrengan. Aingeru Epaltza

Batetik, Berdura Plazako postuak (Getariako **arrain-saltzailea**, gaztagileen postuak, harategiak eta baserritarrak jeneroa saltzen); bestetik, itsuen kaiola Basarriren ondoan, eta aurrerago kaleko musikariak. Xabier Etxabe

Gainerako **arrain-saltzaileek** berena saldu, eta Henne upela beteta zuela geratzen zen. Koro Navarro

Arrantzuan jarduna zenez, arrantzale, eta **arrain-saltzailek** hartu dute zaindaritzat eta sokagin eta soka-dendetako langileek eskatu diote bere itzala. Pello Zabala

29 *arrain sarda*

Neurri handiagoko sareak egitea alternatiba bat al da, **arrain-sardak** gero eta txikiagoak direnean? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Otarreak jendearen bistan jarri zituztenean, Florentek uste izan zuen **arrain sarda** batek hondoa jo zuela hantxe, espaloi hartan, hilzorian oraindik, eta berarekin batera nakar arrosak, koral odolkarak, perla esne kolorekoak, ozeanoaren distirak eta zurbiltasun berdexkak oro haraino eraman zituela. Karlos Zabala

"Egun argitan hondotik dabiltza **arrain sardak** eta ilundu arte jai dugu», azaldu du Bergaretxek, esnatu berritan. Berria - Harian

Ur handiagoetan eta sakonagoetan aurkitu dituzte **arrain sardak** eguraldi txarragatik, besteak beste, eta saredun ontziek ezin sotoak bete. Berria - Ekonomia

30 *arrain txiki*

Ur zurrustak maite zituen **arrain txikiek** bezainbeste. Karlos Zabala

Han arroken azpian salabardoaz **arrain txikiak** harrapatzen genituen, mareak behera egitean putzuetan mugatuta geratzen ziren arraintxoak. Joseba Sarrionandia

Harrapatuta ere, nori erakutsiko genizkion ba hain **arrain txikiak**? Joseba Sarrionandia

Deblauki, **arrain txiki** bat bezala sentitu nintzen, kabuxa bat besterik ez, balearen aurrean. Joan Mari Irigoien

Tomassok ez zidan erantzun, alde egin zuen guregandik, txoria ekaitzetik, **arrain txikia** mazarroarengandik, itsasontzia kortsarioengandik bezala. Felipe Juaristi

-Bada hemen bost garagar-ogi eta bi **arrain txiki** dituen mutiko bat; baina zer da hori honenbesterentzat? Elizen arteko biblia

Lehoiak ez du orkatza inoiz ulertuko, marrazoak **arrain txikiaren** patu hitsa sekula ulertuko ez duen bezala. Txillardegi

Arrain txiki babesgabeen artean dabilen marrazo bat? Oskar Arana

Egin kontu: lauzpabost sarekada egunero, astebete itsasoan arrantzan... kiloka **arrain txiki**. Berria - Ekonomia

Erregistroan **arrain txikiak** harrapatzeko tresnak aurkitu zituen. Berria - Ekonomia

Sumatrako **arrain txiki** bat munduko ornodunik txikiena da. Berria - Gaiak

Horregatik, urtero saskitxoa bete alixa izeneko **arrain txiki** bidaltzen zien monjeei. Askoren artean

Arrain txiki bat hurbildu zitzaion jakin-minez, baina berehala irten zen ziztu bizian; esku neurrigabe hura ez zen ona jateko. Fernando Morillo

31 *arrain urdin*

[...] natural batzuen bidez lorturiko produktuak, aldiz, arriskutsuak dira jende askorentzat: esnea -bertako laktosa asimilatzeko laktasa entzimarik ez baitute gizaki heldu gehienek-, laboreetako glutena, kakahuetea, txerrikia, fruta batzuk (marrubia, meloia, zitrikoak, drupa asko, etab.), **arrain urdina** ... Edorta Agirre

Alderantziz, **arrain urdin** asko jandako zenbait eri jan ez dutenak baino errazago eritu direla ikusi dute. Berria - Gaiak

Aldiz oliba-olioa eta **arrain urdina** jateak kontrakoa eragiten dute. Berria - Gaiak

32 *arrain urlehortar* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

"Channa argus" "Channa" generoko animalia da. Arrainen barruko Channidae familian sailkatzen da. Jatorriz, **arrain urlehortar** hau ekialdeko Txinakoa eta Errusiakoa zen, baita Koreakoa ere. ETC-entziklopedia

33 *arrain-zopa*

Aratseko 9etan hasiko da afaria: **arrain zopa**, legatza saltsa, txuleta, deserta, kafea, kopa eta... purua. Herria

Durant andrea sukaldetik azaldu zen, musua gorri-gorri eginda, **arrain-zopari** azken ukituak ematen jarduna izaki. Mirentxu Larrañaga

Arrantzaleek hiru-oinekoetan **arrain-zopa** prestatzen ziharduten nonahi, zarboak eta bestelako arrain atzeman berriak egosiz. Jose Morales

10 Chowder, "**arrain-zopa**" da ingelesez. Oskar Arana

Espainiako errege-erreginen etxeko zerbitzariek eguerdian **arrain zopa** atera zutenerako, mahaian zein faltako eta Murtziako lehendakaria bera, famili arazoak zirela-eta alde egina. Berria - Euskal Herria

Katilu bat **arrain-zopa** ekarri zidan neskatxak, banbuzko oinarri baten gainean ezarrita zeukan zopa ontzi batetik hartuta, eta erretiratu egin zen, bisitaldiari buruzko xehetasunik galdetu gabe. Javi Cillero

Menua zera zen: **arrain-zopa** ardo beltzarekin (aldamenekoek botata), haragi egosia patata eta xanpainarekin (ídem) eta flan ogi apurrekin (ídem). Joxean Sagaztizabal

Menua bakarrik: zizka-mizkak, entsalada, **arrain-zopa** eta bisigua edo azpizuna. Urtzi Urrutikoeetxea

Luze gabe, elkarren aurrean geunden, **arrain zopa** jaten biok, botila ardoa aurrean. Bernardo Atxaga

34 *arrain zuri*

Holanda eta Ingalaterrako **arrain zuriek** mukuru betetzen zuten azoka. Karlos Zabala

Amak beste bi ume mutur-zikin lagun zituela harrapatu zuen; izeba Claireri bi **arrain zuri** txiki lapurtu, belusezko txapela urez bete eta igerian nola egiten zuten begiratzen ari ziren. Karlos Zabala

35 *arrainari igeri irakatsi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Usu egiten zuen moduan, denetan azkarrena zela pentsatu zuen, **arrainari igeri irakasten** diotenetakoa. ETC-literatura, saiakera

36 *arrainetara irten* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Akorduan dauka Nereak aitite Mateo eta biak **arrainetara irteten** zirela motordun txalupa txikian, eta ontzi misteriotsura hurbiltzen zirela, dei egiten ziotela eskifaia lander hari. ETC-prentsa

37 *arrainetara joan*

Pasealeku Berrira **arrainetara joateko** asmoz jaiki zen ezordu haietan. Migel Angel Mintegi

38 *eskalar arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Eskalar arraina edo aingeru arraina. Nazioarteko "scalar, escalare" izenak euskaraz **eskalar arraina** ematen du. ETC-entziklopedia

39 *esne-arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Esne arraina ("Chanos chanos") Gonorynchiformes ordenako arraina da, Indiako ozeanoan eta Ozeano Barean bizi dena. ETC-entziklopedia

Esne-arrainaren hazkuntzak arazo berari egin behar dio aurre Filipinetan, Txinan, Vietnamen, Thailandian, Indonesian eta Indian. ETC-literatura, saiakera

Hawaii bakarra zen, halaber, Polinesian akuikulturan langile-kopuru handiak erabiltzen eta arrain-hazkuntzarako urmaelak eraikitzen, **esne-arrainak** eta korrokoiak hazteko. ETC-literatura, saiakera

40 *espatula arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Ibai horrek mota berezi bateko dortokak ematen ditu, perkak, amuarrainak, lepisosteiformeak, lutxoak, korrokoiak, sardinzarrak, karpak, 50 librako **espatula arrainak**, 100 librako siluruak, bufalo arrainak eta gaizkatak. ETC-literatura, saiakera

"Polyodon spathula" "Polyodon" generoko animalia da. Arrainen barruko **Espatula arrain** Polyodontidae familian sailkatzen da. ETC-entziklopedia

41 *ezpata arrain*

Itsasoen defentsarako Oceana erakundeak legatza eta **ezpata-arraina** babesteko neurri zerrenda bat aurkeztuko dio Europako Batzordeari astelehenean. Berria - Gaiak

Itsasoen defentsarako Oceana erakundeak legatza eta **ezpata-arraina** babesteko neurri zerrenda bat aurkeztuko dio Europako Batzordeari astelehenean. Berria - Gaiak

Dortoken apokalipsia **ezpata-arrainaren** eta hegalaburraren familiako kideen harrapaketari dago lotuta. Berria - Gaiak

Eezpatarrainarekin izan zuen borrokaren ostean bere burua ikusi du arrantzale zaharraren larrupean, eta istorioa bere buruari kontatzeari ekin dio. Edorta Jimenez

Dortokak salbatzeko eta, bide batez, **ezpata-arrainen** egoera hobetzeko, amuen tamaina handitzea, forma aldatzea eta arrantza mugatzea proposatu diete arrantzaleei. Berria - Gaiak

Ez zitzaidan batere kostatu Hemingway hantxe bertan irudikatzea, mojitoak edaten eta argazkietarako jarria itsasoan harrapatzen zituen **ezpata arrain** handiak eskuetan. Jon Muñoz

42 *globo-arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Globo-arraina ("Lagocephalus lagocephalus") Tetraodontidae familiako ur gaziko arraina da, mendebaldeko Ozeano Barean eta Ozeano Indikoan bizi dena. ETC-entziklopedia

Globo-arrain baten antz-antzekoa da baina ez da arraina, lehorrekoa da. ETC-prentsa

Puztu egiten diren arrain horien artean daude Tetraodontidae familiakoak, **globo-arraina**, adibidez, eta Diodontidae familiakoak, triku-arraina, esateko. ETC-literatura, saiakera

43 *harri-arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Harri arraina ("Synanceia") Synanceiidaeen familiako arrain generoa da. Munduko arrain pozoitsuenetariko batzuk ditu barnean, gizakiarentzat ere hilgarriak direnak. ETC-entziklopedia

44 *ilargi-arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Eta zer gertatzen da, bada, Hondarribian? Urteko egun batzuetan Mola-mola arrainak, **ilargi arrain** ere deituak, elkartzen dira han. ETC-prentsa

Oihan zefalopodoan oskol iletsuzko pitzerrak harkaitz arrosen gainean marraskatzen du Honoluluko **ilargi-arraina**. ETC-literatura, saiakera

Bizkarraldean bermatu zen eta janzkitik latorrizko malguki-labana bat atera zuen, **ilargi-arrain** itxurakoa. ETC-literatura, saiakera

45 *itsas arrain*

Bien bitartean, Verlaque jaunak **itsas arrainen** saltokietara eraman zuen berriz Florent. Karlos Zabala

Itsasokoa agortzen ari denez -arrantzak honela jarraitzea ez da komeni eta ez da posible: bolanta izeneko sare pelagikoen kontua txori-kaka baino ez da arazo-ozeano horretan-, ospakizun handietan ibai eta **itsas arrainak** kontsumituko ditugu. Edorta Agirre

46 *mailu-arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **41** agerraldi)*

Mailu-arrain ("Sphyrna") marrazoen genero baten izen arrunta da, mundu osoko itsaso epeletan bizi dena. ETC-entziklopedia

Ikusi dut, behin, goialdeko bizkar bateko barandatik begira, behe-behean eta itsasontziaren atzeko kroskoaren inguruan, eskuinaldean, **mailu-arrain** baten hegal bereizgarria zirudiena, itsasontziaren istriborreko turbinak sortutako ubera niagararrarekin nahas-mahasean. ETC-literatura, saiakera

Tunela orain, erditik hondorantz begiraturik, hegalak ebakitako inbutu intrigante bat da, topearen barrenak **mailu-arrain** erraldoi baten burua dirudiela. ETC-literatura, saiakera

Azkarren galtzen ari diren animalien artean Afrikako antilopeak daude, baita ezpata arrainak eta **mailu arrainak** ere. ETC-prentsa

Azkarren galtzen ari diren animalien artean Afrikako antilopeak daude, baita ezpata arrainak eta **mailu arrainak** ere. ETC-prentsa

1.500 metro kubikoko akuarioan, **mailu arrainen** joan-etorriak ikusi ahalko dira. ETC-prentsa

Zezen-marrazo, tigre-marrazo, **mailu-arrain** eta marrazo erraldoiekin batera egin du igeri. ETC-prentsa

47 *manta-arrain* *(corpusean **mantarrai** soilik)*

Azkenerako geldirik geratu da, ahotik kotoiaren moduko adur lehorra dariola eta ahuspez etzanik, **mantarraiaren** moduan. Joseba Sarrionandia

48 *mihi-arrain*

Bizkaiko Zubitik gora sarri ikusten dira muxarrak, **mihi-arrainak**, izkirak, aingirak, zenbait lupia eta mubleak. Berria - Euskal Herria

Carbayo **mihi-arrain** bat jaten ari zen, lasai, hezurrak poliki-poliki bereiziz, ardo zuri eta hotzaren laguntzaz. etxeko androideak prestatu eta zerbitzaturiko Meunière **mihi-arraina** afaltzen ari direla, amak bota dio aitari: [...]. Jon Alonso

Joan den astean, **mihi arrain** pare hura saldu hidanean, hiregana joan al nintzen ustelak zeudela jendearen aurrean esatera? Karlos Zabala

Mihi-arrain kontserbazko pote bat hondatu egin da. Josu Zabaleta

49 *mihi-arrain buruhandi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Mihi-arrain buruhandia ("Dicologlossa cuneata") "Dicologlossa" generoko animalia da. Arrainen barruko Soleidae familian sailkatzen da. ETC-entziklopedia

50 *mosaiko-arrain* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Mosaiko arraia edo arraia uhindua ("Raja undulata") ur gaziko kondriktie arrain kartilaginosoa da, Rajidae familiakoa. ETC-entziklopedia

51 *pailazo-arrain*

Berehala eramango nau Jainkoak **pailazo-arrainaren** eta koloretako beste guztien zeru epelera. Bernardo Atxaga

52 *purpura-arrain* itsas mulusku gasteropodoa, antzina purpura ateratzen zitzaiona.

Purpura-arrainaren kolore gorria artilearekin bakarrik biltzen da eta ez da sekula bereziko, artilea Neptunoren olatuekin berritu nahi baduzu ere. Xabier Amuriza

53 *puxika-arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **55** agerraldi)*

Puxika arraina ("Arothron mappa") Tetraodontidae familiako ur gaziko arraina da, mendebaldeko Ozeano Barean eta Ozeano Indikoan bizi dena. ETC-entziklopedia

Azaroaren 10 eta aurreko egunetan, **Puxika arraina** atzeman zuten Kantauri itsasoko uretan. ETC-entziklopedia

Intoxikazioaren errua arrain bitxi bat da, Europan **puxika-arraina** izenaz ezagutzen dugun arraina, eta japoniarrek fugu deitzen dutena hain justu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jaten diren arrainen artean **puxika arraina** (fugu) pozoitsuena izan daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortxe ditugu Kobeko idia -ezin hobe zaintzen dituzte animalia horiek-, bizi-bizi dauden olagarroak eta **puxika arrain** pozoitsua. ETC-prentsa

Giza genoma **puxika arrainarenarekin** erkatzeak datu berriak eman ditu. ETC-prentsa

Zerrendan diren 22.413 espezie horien artean daude Ozeano Bareko hegalaburra, Txinako kobra eta Txinako **puxika arraina**, bertzeak bertze. ETC-prentsa

54 *sable-arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **49** agerraldi)*

Sable-arrain arrunta ("Lepidopus caudatus") arrain perciformes pertziformea da, mundu osoko itsaso epeletan bizi dena. ETC-entziklopedia

"Benthodesmus macrophthalmus" "Benthodesmus" generoko animalia da. Arrainen barruko **Sable-arrain** Trichiuridae familian sailkatzen da. ETC-entziklopedia

Udan, berriz, hegaluzea eta **Sable-arraina**. ETC-prentsa

55 *ur handietako arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Ur handietako arrainak bezain berezi diren hitzak. ETC-prentsa

Ur handietako arrainak ditugu sarean: Roland Dumas handikiak atzo baino urdinxeago duke ilea, eta Rafael Vera eta Jose Barrionuevo beraiek nahi ez bezala itzuli dira egunkarietara. ETC-prentsa

Gainera, abokatutzan dirua irabazten ere hasia zen, baita township-eko **ur handietako arrainen** estiloaz jabetzen ere. ETC-literatura, saiakera

56 *ur handiko arrain*

Rauter, alemaniar **ur handiko arrain** batek, uztailaren 1erako judu guztiek germaniar herrialdeetatik alde egin beharko dutela esan du hitzaldi batean. Josu Zabaleta

57 *zebra-arrain*

Zebra arraina egun aski eredu erabilia da zientziaren alorreko ikerketa asko egiteko, batez ere genetikaren alorrean. Berria - Euskal Herria

Zebra arrainen ezaugarriak bereziak dira, eta askotan erabiltzen dituzte farmaziako ikerketetan. Berria - Euskal Herria

Zebra arrainaren enbrioia gardena da, eta ikerlariek arrainaren bihotza, hezurrak, neuronak... fluoreszente bilaka ditzakete tinten bitartez. **Zebra arrainak** ugaltzeko gaitasun handia dauka eta belaunaldi bereko arrain asko jaiotzen dira. Berria - Euskal Herria

58 *zerra-arrain* *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)*

Zerra-arrain arrunta ("Pristis pectinata") **zerra-arrain** pristidoen familiako itsas arrain handia da, 4,5 m inguru luzea eta zerra itxurako muturra, 1,20 m inguru luzea, duena. ETC-entziklopedia

Arrainen barruko **Zerra-arrain** Pristidae familian sailkatzen da. Indiako ozeanoan eta Ozeano Barean bizi den **zerra-arrain** hau monotipiko edo kide bakarra da bere generoan. ETC-entziklopedia

Horrenbestez hango espezie batzuk ur gezetan bizitzera egokitu diren itsas arrainak dira, hala nola "Carcharhinus leucas" marrazoa eta "Pristis perotteti" **zerra-arraina**. ETC-entziklopedia

59 *zilar-arrain*

Paul D-ri iruditu zitzaion **zilar-arrain** handi batek alde egin ziola eskuetatik, isatsetik oratzearekin bat. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

andre arrain (3); **arrain asko** (5); **arrain azoka** (3); **arrain azokan** (5); **arrain bat** (27); **arrain batek** (4); **arrain baten** (9); **arrain bati** (5); **arrain begi** (3); **arrain besterik** (3); **arrain bila** (4); **arrain buruak** (3); **arrain ederrak** (3); **arrain erreserben** (3); **arrain eskasia** (3); **arrain espezie** (14); **arrain eta oskoldun** (3); **arrain fresko** (4); **arrain freskoa** (10); **arrain garbia** (3); **arrain gazitu** (4); **arrain gazituen** (3); **arrain gehiago** (5); **arrain gorrien** (4); **arrain gustua** (3); **arrain gutxi** (5); **arrain guztiak** (4); **arrain haiek** (3); **arrain handi** (17); **arrain handi bat** (6); **arrain handiak** (8); **arrain harrapatu** (3); **arrain hezur** (3); **arrain hil** (7); **arrain hiltzen** (3); **arrain hori** (8); **arrain horrek** (5); **arrain horren** (3); **arrain ikuskatzaile** (5); **arrain kaxak** (3); **arrain kiratsa** (3); **arrain klase** (3); **arrain kontserba** (3); **arrain kopurua** (5); **arrain kumeak** (4); **arrain mordoa** (3); **arrain mota** (16); **arrain ontzi** (6); **arrain ontzia** (3); **arrain pila** (4); **arrain pila handia** (3); **arrain puska** (6); **arrain saltsaki** (6); **arrain saltsaki prestatzaileen** (3); **arrain saltsakiaren** (3); **arrain saltsakiaren kofradiak** (3); **arrain saltzaile** (11); **arrain saltzailea** (11); **arrain saltzaileak** (20); **arrain saltzaileek** (7); **arrain saltzaileen** (7); **arrain sarda** (3); **arrain sardak** (4); **arrain transgeniko** (4); **arrain txiki** (10); **arrain txiki bat** (3); **arrain txikiak** (5); **arrain ugari** (4); **arrain urdina** (3); **arrain usain** (3); **arrain usaina** (7); **arrain ustel** (6); **arrain ustela** (3); **arrain ustelaren** (3); **arrain zati** (4); **arrain zopa** (11); **baino arrain gehiago** (3); **batean arrain** (4); **bere arrain** (3); **beste arrain** (8); **bi arrain** (13); **hainbat arrain** (5); **hainbeste arrain** (4); **harrapatutako arrain** (3); **itsasoko arrain** (5); **izeneko arrain** (3); **lehengo arrain** (3); **mihi arrain** (4); **tona arrain** (4); **ttoro arrain** (10); **ttoro arrain saltsaki** (6); **ttoro arrain saltsakiaren** (3); **zernahi arrain** (3)

---

arraindegi ik **arrandegi**.

---

arraindun *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)* *iz* arrain saltzailea.

Banatzaileak, kamioi gidariak, **arraindunak** edo mekanikariak izango ziren, mundua martxan jarri ahal izateko berogarriren bat hartzen. ETC-literatura, saiakera

Amantal eta xal beltzez Benidormeko antxoak egunkari orritan biltzen dituen **arraindun** zaharra. ETC-literatura, saiakera

Arraindunari arrain-saltzailea esaten diote batzuek. ETC-literatura, saiakera

Ordu laurden bat beranduago, auskalo zergatik, Juanito Oiartzabal genuen hizpide: izar mediatiko bihurtu aurretik harakina edo **arrainduna** izan ote zen. ETC-prentsa

Arrandegi gabe ginen eta guretzako poztekoa da **arrainduna** herrira etortzea. ETC-prentsa

Arrainduna astean behin etortzen da. ETC-prentsa

Arrantzu burutsuago baten aldeko kanpainak han ez dira espainolezko Pezqueñines, no gracias bezalako arinkerietan geratzen, ezta gure **arraindunei** entzuten zaien "bertako bisigua aspaldi bukatu zela" bezalako kexuetan ere. ETC-prentsa

Urte asko zeraman **arraindun** bat, esaterako, ogitartekoa jateko eskuak arrandegiko iturrian ez garbitzeagatik kaleratu zuten. ETC-prentsa

Arrainduna zen amona, baita nire ama ere. ETC-prentsa

---

arrainetara *adlag* arrantzara.

Nire esku utzi dituzte salgai horiek, eta zuk **arrainetara** botatzea nahi! Jon Muñoz

Pasealeku Berrira **arrainetara** joateko asmoz jaiki zen ezordu haietan. Migel Angel Mintegi

---

arraingorri *iz iz Triglidae* familiako arrainei ematen zaien izena. ik **perloi**.

Arraingorri bat zegoen barruan. Joseba Sarrionandia

Arraingorri hori bere kristalezko mugen barruko uretan hara eta hona zebilen, ene aurrez aurre jartzen zen, ahoa eta begiak zabalduz, ahoka, isilik, eta kristala muturrez jotzen. Joseba Sarrionandia

'Zer, **arraingorriari** begira?'. Joseba Sarrionandia

---

arrainketa *adlag* arrain bila.

Euskal arrantzaleen ixtorioa kondatua izan zauku, nola egunak eta egunak joaiten ziren beren bizia irriskatuz **arrainketa**, itsas untzi horietan. Herria

---

arrainketari *iz* arrain saltzailea.

Lurrean, kalez kaleko **arrainketariak** sardinzar eta arrain txikien otarreak banatzen ari ziren, bat hartuta erosiak baitzituzten. Karlos Zabala

---

arrainki *iz* arrain haragia.

Bada hor tokiko ekoizpen andana bat: bio-mozkinak, **arrainkiak**, gasna, ahate gibela, bertzeak bertze. Herria

Itsasoz leihorrez bezain aise badabiltza eta nola jakiaren eta **arrainkiaren** egosten ez dakiten, gordinik jaten dute. Aurelia Arkotxa

---

arrainkume *(orobat **arrain kume**)* *iz* arrainaren kumea.

On Camillo pittin bat Tximista bezalakoa zen gauza batzuetan, eta **arrainkume** bat bailitzan heldu zion amuari. Gasteizko Gobernuak "laga egin du **arrainkumeen** arrantza", Belaustegiren hitzetan. Koldo Biguri

OPPAOko gerente Victor Badiolak gaizki deritzo **arrainkumeen** harrapaketari. Berria - Ekonomia

1999tik, Europako Batzordeak kontrolatzen du **arrainkumeen** salerosketa. Berria - Ekonomia

Pil-pilean dago, berriro, **arrainkumeen** negozioa. Berria - Ekonomia

Txikia nintzela, jada negozio ederra zen **arrainkumeena**. Berria - Ekonomia

Adituek egiaztatu dute %80 gutxitu direla **arrain kumeak**, eta arrain helduen arrantza eten beharra dagoela, espeziea biziko bada. Berria - Harian

Ontzijabeek lonjatik kanpo ixten dute tratua eroslearekin, **arrain kumeak** jendaurrean erakutsi behar ez izateko. Berria - Ekonomia

---

arrainontzi *iz* arrainak harrapatzeko itsasontzia.

Arrainontzi bat urre-arrainez betea. Koro Navarro

Beso batekin kolpatu egin zuen baldatxo baten gainean zegoen kristalezko **arrainontzia** eta hau lurrera jausi eta hamaika puskatan txikitu zen. Joxemari Iturralde

Orduan, hegatsa astindu eta buelta ematen zuen, **arrainontzian** zehar joanetorri batzuk egiteko. Joseba Sarrionandia

Bisigu pare ederra ginen; akuariumeko **arrainontziko** bisigua, eta bisigu horri, **arrainontzitik** kanpotik, begira dagoen bisigua. Jon Alonso

Irakasle gela pixka bat aurrerago dago; **arrainontzi** baten antzekoa da, aluminiozko egitura batek korridore zabalari lapurtutako espazioa. Iban Zaldua

---

arrainontzitxo 1 iz adkor arrainontzi txikia.

Libre izateko jaiotako animaliok batzuetan hogei zentimetroko kaiolan bizi dira edo **arrainontzitxo** batean, Gotzon Garate

arraintegi ik **arrandegi**.

---

arraintegi *iz* arrainak hazteko edo arrainkiak ekoizteko tokia.

Barnean badago **arraintegi** bat hotza 40 metro karratukoa. Herria

Arnaud bere denboran hargintzan eta Maite ainitz urtez Donibanen **arraintegi** lantegi batean lanean arizan dire. Herria

---

arraintxo 1 *iz adkor* arrain txikia.

Arraintxo hori saldotan bizi ohi da, eta talde bakoitzak ar dominante bat bakarra izan ohi du. Joxerra Garzia

Han arroken azpian salabardoaz arrain txikiak harrapatzen genituen, mareak behera egitean putzuetan mugatuta geratzen ziren **arraintxoak**. Joseba Sarrionandia

Hausnartzearen poderioz, putzua itsaso bihurtu zen, eta **arraintxoak** tiburoi eta balea. Anton Garikano

Nik zu zaitut maiteago **arraintxoak** ura baino. Joan Mari Irigoien

Olatuek ilargia baino maiteago zaitudala esatera etorri natzaizu, **arraintxoek** ura baino maiteago. Patxi Zubizarreta

Karramarroak eta **arraintxo** ondo xigortuak ipini inguru guztian, eta esperlano-okela xehatua tartekatu hor-hemen, eta onddoak, errefauak, tipulak azenarioak, babak..., txiki-txiki eginik dena. Jose Morales

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aurrean eta ur-ertzetik gertuen, **arraintxo** txikienak zeuden, hauen atzean erdi-tamainakoak, eta atzerago, ura sakonagoa zen lekuan, arrain handienak. Askoren artean

Bazituzten **arraintxo** banaka batzuk ere; Jesusek bedeinkazioa esan, eta haiek ere banatzeko agindu zien. Elizen arteko biblia

Gauak olatu handien modukoak ziren etxeen kontra jotzen, **arraintxo** itsuen atsekabearekin bizi ginen. Joseba Sarrionandia

Oinetakoak haitz gainean utzi eta saretxoaz atzematen genituen koloretako **arraintxoak**. Joseba Sarrionandia

Arrainontziko ura saloi osoan hasi zen zabaltzen eta barruan zeuden koloretako **arraintxoak** urduriki hasi ziren mugitzen, batera eta bestera eroki, banaka-banaka hiltzen joan ziren arte. Joxemari Iturralde

Molly eta Charlie eta hirurok errekan behera joanak ginen arrantzara, **arraintxoak** harrapatzera, edo amuarrain marroiak. Mirentxu Larrañaga

Arrainek Bego maite dute: kanabera jartzen du, lo gelditzen da eta **arraintxoek** haientzako jarritako gozokiak jaten dituzte; alde egiten dute gero. Berria - Gaiak

Uretara bota genituen harrapatutako **arraintxoak**. Joseba Sarrionandia

Karramarroak eta **arraintxo** ondo xigortuak ipini inguru guztian, eta esperlano-okela xehatua tartekatu hor-hemen, eta onddoak, errefauak, tipulak azenarioak, babak..., txiki-txiki eginik dena. Jose Morales

---

arraintza 1 *iz batez ere ipar* arrantza.

Duela mende laurden bat oraino, hamabost baxurako ontzi bazeuden Mutrikun, **arraintza** zelarik herriko jende askoren lanbidea. Herria

Urtarrilaren 31n, larunbat aratsez, Atherbea liburutegian, mintzaldi-elgarrizketa, Pain senar-emaztek eskainirik, balearen **arraintzaz**. Herria

Berek galdegiten zuten antxoaren **arraintza** 2006 eko urte guzian debekatzea arrainaren geroa salbatzeko. Herria

Gogoari eman dute beraz behar zela heientzat **arraintza** ttipitu, bai eta kendu itsasuntzien. Herria

Arraintzak ere garrantzia handia du, arraina dutelarik elikagai nagusia irrisatik landa. Herria

Orain ez dira hainbeste ikusten **arraintzako** tresna horiek eta bi hitz merezi dute. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ernest Hemingwayk Gregorio Fuentes ezagutu baino lehen entzuna zuen agure arrantzale bakartiaren eta **arraintzarraren** berri. Edorta Jimenez

Omenaldi pozgarria hor zeuden guzientzat, bainan arragurak ere ez urrun, **arraintzaren** etorkizunari begira. Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hego Lapurdin, **arraintza** sailetan, Departamenduak 12000 euro bozkatu ditu arrain izarkari baten erosteko Donibane / Ziburuko portuan; Surf Casting **arraintza** lehiaketa Hendaiako ondartzan. Herria

Maiatzean buru beharri sartuko da bi lehiaketetan: Euskadi/Akitania deituan eta **"Arraintza** portuen lehiaketan". Herria

Donibane Lohizunen bost **arraintza** ontziren berritzeko 154 000 Euro. Herria

Gero, itsas bazterreko bidea hartu dugu, hondartza eder batzuen artean, ikusiz, golko ttiki batzuen barnean, **arraintza** untzi, leihor eta uda leku ainitz. Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Izokin **arraintza** arras gostukoa dutenak badira. Herria

Izokin **arraintzari** doakionez, 75 izokinera mugatua da, ez bat gehiago, eta izokinak gutienez 40 zentimetrakoa behar du. Herria

Ortzirale aratsaldeko 6.30etan, Baionan, Eusko Ikaskuntzaren egoitzan, Manex Pagolaren hitzaldia angula **arraintzaz** Aturri ibaian. Herria

Islandian balea **arraintzan** berriz hastera doatzi abustu hontan. Herria

Etxe edo egoitzak izan ziren 98.525 osoki suntsituak edo hurbil, orain 20.000 dira berriak eginak, hots, bostetarik bat doi doia Sri Lankan berean, eta lanbideak, eta itsas- **arraintza** eta besteak araberan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antxoaren arraintza** (3)

---

arraintzale *iz ipar* arrantzalea.

Bortizki dute ihardoki xede hoieri **arraintzaleek**. Herria

Bruxelles-eko europano arduradunak zituzten guziz partida frantses **arraintzaleek** . Herria

Jaun horiek pentsatu dute arrain mota batzu ezeztatzerat zoatzila sobera baitituzte itsasotik ateratzen **arraintzaleek** . Herria

22 Urtetan **arraintzale** patroi. Herria

---

arraintzar 1 *iz adkor* arrain oso handia.

Jainkoak itsas **arraintzarrak** sortu zituen, uretan borbor dabiltzan orotariko bizidunak eta orotariko hegaztiak. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen. Elizen arteko biblia

Ernest Hemingwayk Gregorio Fuentes ezagutu baino lehen entzuna zuen agure arrantzale bakartiaren eta **arraintzarraren** berri. Edorta Jimenez

2 *itsas arraintzar*

Jainkoak **itsas arraintzarrak** sortu zituen, uretan borbor dabiltzan orotariko bizidunak eta orotariko hegaztiak. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen. Elizen arteko biblia

---

arraintzari *iz ipar* arrantzalea.

Hango **arraintzariek** ez daukate untzirik itsasoratzeko. Herria

Arraintzari bereziak ziren joanden larunbatean "Laka" errekaren bazterretan ari zirenak. Herria

Ihiztari eta **arraintzari** trebea da nahiz adinarekin ausagailu hauek utziak dituen parte bederen. Herria

7.30 etan **Arraintzarien** zoingehiagoka, Hazketako errekan Toki-Oneko parean. Herria

Bertzea Laurence Culas (bataioko izena) John familiako izena, itsas **arraintzari** semea, Kerala lurraldekoa, bere mintzaira Malealam. Herria

---

arraio[1] *(ETCn **5.235**)* 1 *interj* (galdetzaile baten eskuinean) harridura, haserrea eta kidekoak adierazteko hitza. ik **demontre**; **arraiopola**; **arranea**; **arranetan**; **arrania**; **arranopola**.

Egoera horretan gogo-egoera edo gogo-propietate murriztezin horiek zer **arraio** diren imajinatzea zaila da. Askoren artean

Ailegatu berritan, hizkuntza arrotz bat, hitz ostrogodoak, zer **arraio** nahi zuen nigandik? Fernando Rey

Zer **arraio** diozu? Ibon Uribarri

-Nora **arraio** hoa? Aingeru Epaltza

Nork **arraio** asmatu edo erabili ote zuen tramankulu hori? Joxan Elosegi

Zaintzaileek ziztu egiten ziguten txilibituarekin, auto eta bizikleta guztiak gelditu egin ziren, eta jendeak, harrituta, hura zer **arraio** zen galdetzen zion bere buruari. Pello Lizarralde

-Hori ikusiko dugu, gerraren jokalekuan topo egiten dugunean; baina ordu arte, zer **arraio** ! izan gaitezen bidelagun. Karlos Zabala

Harrigarria da... hura gerarazi zezaketen gauza guztien artetik... baina nola **arraio** geratu da Harry bizirik? Iñaki Mendiguren

Inork ez daki nola **arraio** iritsi ziren betaurrekoak eskulturaren aurpegira», esan zuen Dempseyk umoreari tartea eginez. Berria - Kultura

Sekula ez nuen jakin, ez eta nor **arraio** zatekeen Adam Johnson jauna ere. Joxan Elosegi

Egin diezaiogun barre geure egunerokotasunari, zer **arraio** . Iñigo Aranbarri

-Zer **arraiotara** etorri zarete nire etxera? -galdetu zuen, era txarrean. Joan Mari Irigoien

-Jakin nahi nikek noiz **arraio** mozten duten bizarra hemengo gazteek. Joxerra Garzia

Nork **arraio** utzi du hemen anplifikadore putaseme hau? Unai Iturriaga

-Zer Holly eta zer **arraio** ! -esaten dit. Koro Navarro

Total, ze **arraio** egin behar dinat gaur, hemendik sei mila milioi urtera eguzkia itzali eta dena Judasen inbutuaren zulotik amilduko bada? Harkaitz Cano

-Zoazte bordara, bederen, ze **arraio** ! Elena Touyarou

- Ez zara Amsterdamez gogoratzen, edo zer **arraio** ? Eider Rodriguez

Baina, orduan, ez bazen lakura erori, non **arraio** sartu zen? Aritz Gorrotxategi

Eta zer **arraio** ari zaiok, ba, bestea esaten! Xabier Olarra

2 (izenondo gisa)

Lotsagabea zen tratuan Tomas **arraioa** , nolako irrintziak neskek haren ondoan, burura etortzen zitzaion aurrenekoa esaten omen zien. Koldo Izagirre

Lehergailu **arraio** haiek ezustean lehertu ziren. Berria - Mundua

Euskaldun **arraio** horiek lanean ari zituan, eta gu txoritan! Koldo Izagirre

Egia esateko, Juanitok ez zekien Venezuela **arraio** hori zein tokitan zegoen. Xabier Etxabe

3 (izenondo baten eskuinean)

Hain bizkor **arraio** ia galtzazpiak busti bainituen. Oskar Arana

Ivyk, lasai **arraio** , berak goserik ez zuela, besterik ez zidan adierazten. Joxe Austin Arrieta

Zera... egia esateko, hire dosierra ustel **arraio** zagok. Pablo Sastre

-Gezurti **arraioa** ! -bota zion emazteak-. Patxi Zubizarreta

Txulo **arraioa** , asesinoa, ostikoak ematen besterik ez dakian astakirtena... Xabier Mendiguren Elizegi

5 *arraioa*

Arraioa ! Oraingoan ederki harrapatu nauzu. Berria - Euskal Herria

-Arraioa , Martin! Edorta Jimenez

-Arraioa ... zeinek esan dik hemen nengoela? Pako Aristi

Eta, oheak kirrinka egiten bazuen, barrez xuxurlatzen zuen: **"Arraioa** ! Karlos Zabala

Arraioa , hoa gutxienez bainatzera! Jose Morales

-Arraioa , zertan ari zara? Utz itzazu saretak itxita. Anton Garikano

- **Arraioa** ! -oihu egin zuen mahaiaren mutur batetik egunkariari esku batekin eta kafe kikarari bestearekin eusten zion gazte batek. Lopez de Arana

Arraioa , esne-mamitan bizi zara -segitu zuen Monak, haren berokiaren oihala ukitu bitartean. Fernando Rey

-Nora begira hago, **arraioa** ? Pedro Alberdi

Arraioa , beti harrapatu behar ote nau sorgin eder honek? Urtzi Urrutikoeetxea

6 *arraioak ez badu*

Egia da bai, **arraioak ez badu** , orain egun-argiz dagoen bezalaxe! Patxi Ezkiaga

Alde, **arraioak ez badu** ! Patxi Ezkiaga

7 *lasai arraio* *adkor* oso lasai.

Ivyk, **lasai arraio,** berak goserik ez zuela, besterik ez zidan adierazten. Joxe Austin Arrieta

Hortxe bizi da, etxe ziztrin horretan -erantzun zien **lasai arraio-** . Juan Kruz Igerabide

Azterketa amaitzen aurrenetarikoa izan da ikasle begiluzea, eta badoa, **lasai arraio,** azterketa-orriak irakasleari entregatzera. Joxerra Garzia

8 ***mila arraio***

-Ez al duk haragirik ekarri,ala **mila arraio** ! -oihu egin zion Mateok Martin Mihurubikoari, berau baitzen, lau gizon hartuta, haien bila joana. Edorta Jimenez

Zer **mila arraio** gertatu da? Joanes Urkixo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

babo arraio (5); **baina nola arraio** (3); **baina zer arraio** (14); **edo zer arraio** (4); **eta nola arraio** (3); **eta ze arraio** (3); **eta zer arraio** (11); **lasai arraio** (6); **noiz arraio** (4); **nola arraio** (49); **nola arraio esan** (3); **nola arraio ez** (3); **non arraio** (29); **non arraio egon** (3); **non arraio sartu** (4); **nondik arraio** (5); **nor arraio** (8); **nora arraio** (3); **nork arraio** (6); **serio arraio** (5); **ze arraio** (26); **zein arraio** (3); **zer arraio** (210); **zer arraio ari** (14); **zer arraio da** (9); **zer arraio duk** (3); **zer arraio egin** (10); **zer arraio egingo** (4); **zer arraio egiten** (10); **zer arraio esan** (6); **zer arraio gertatu** (3); **zer arraio gertatzen** (15); **zer arraio nahi** (9); **zer arraio ote** (6); **zer arraio zen** (3); **zergatik arraio** (6); **zergatik arraio ez** (3)

---

arraio[2] *iz* izpia, errainua.

Eki **arraioetara** erakusten ez ziren gorputz zatiak hots. Itxaro Borda

---

arraioka *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *adlag* 'arraio' esanez.

Gero, zer **arraioka** topatu izan du bere burua, zer arraio dabilen kanpaia hain modu tristean jotzen -kostata isurtzen du, semen gutxi, zakila biguin samar, plazeraldi llaburra-, ez ote den estualdiak baretzeko beste bide egokiagorik topatzeko gauza, eta ea nora eramaten ari den bere gorputza, [...] ETC-literatura, saiakera

---

arraiopola *interj adkor* arraio.

Arraiopola , a zer traste pila egin behar duzun! Jesus Mari Mendizabal

Arraiopola ! Arestian karrikan gurutzatu pertsonari zerbait berezia hauteman diot begiradan, ez-aise utzi nau; haietarikoa ote? Jose Angel Irigaray

- **Arraiopola** ! -Santxok esan- niri gertatu izanak esateagatik ez dut nik sos bat emango; zeinek jakin lezake ba neronek baino hobeki? Patxi Ezkiaga

Baziren bi gaztetxo, indioak, palaz bikain jokatzen zutenak, **arraiopolak** ! Gotzon Garate

---

arraiotan *interj* harridura, haserrea eta kidekoak adierazteko hitza. ik**arraio**.

" **Arraiotan** ! " Tximistak jota bezala gelditu da. Patxi Iturritegi

Ni oso-oso kezkatua nengoen, **arraiotan** ! Antton Olano

---

arraioztar *izlag/iz* Arraoizkoa, Arraoizi dagokiona; Arraoizko biztanlea.

Nabarmentzekoa da, hauen artean, Elizagoien **arraioztarrak** txapelketarako itzulera zuela joan den urtean kantatu gabe egon ostean. Berria - Kultura

Azpimarratzekoa da dudarik gabe **Arraioztarra** sortzez eta Mugairen bizi den Bittor Elizagoien bertsulariak jokatuko duela aurten bere 25 garren Nafarroako xapelketa, jada hamalau aldiz finalera helduz eta bietan xapeldun. Herria

---

arraitasun *iz* alaitasuna.

Gogorat datozkit Indietan ezagutu nituen indiar haiek: ez zekiten skribatzen, ez irakurtzen, baina **arraitasun** eta bizipoz hura zuten, hain handia, hain betea eta hain barnekoa, non baitzirudien ezen, deus ere ez zekitelarik, guztia zekitela. Joan Mari Irigoien

Arraitasuna tristura baino hobeki disimula daitekeela. Joan Mari Irigoien

Putzu bat zegoen tokiraino, non jauzika hasi bainintzen, plisti-plasta eta plisti-plasta, **arraitasunak** eta plazentziak horditurik banengo bezala. Joan Mari Irigoien

Badaki sorrarazten duen **arraitasunaz** neurriz gain ez baliatzen. Jon Muñoz

Askatasun honek, gizakiaren **arraitasunaz** eta zeruaren handitasunaz nahaste, badu bere grazia. Koldo Izagirre

Arraitasunez agurtu ninduen bere etxe aurrean, eta barkamena eskatu zidan zerbait edatera ez gonbidatzeagatik. Berria - Kultura

Eta malko bat isuri zitzaidan, bozkariozko eta **arraitasunezko** malkoa. Joan Mari Irigoien

Deitoratu dut orduan haren bazterraldia, mania bat zirudielakoan, eta saiatu naiz neure liskar ttipiari **arraitasun** doi bat eransten. Jon Muñoz

Abiatu nintzen neure buruz Pisako kaleetan barrena, eta **arraitasun** oso batek hartu ninduen arras, goiti-beheiti. Joan Mari Irigoien

---

arraitsu *izond* alaitsua.

Agertokian, ile-apaintzaile gay **arraitsu** batek bi bezerori egiten die kasu, bata beltza, bestea zuria. Oskar Arana

Hautagaiak begirakune **arraitsua** zuzendu zion bezeriari, eta Kirxari mintzatu zitzaion hurrena: [...]. Patxi Zubizarreta

---

arraitu, arrai(tu), arraitzen da/du *ad* alaitu.

Eta napolitarra **arraitu** eta alegeratu egin zen ikusi ninduenean, zeren, kantatzen ari zelarik, keinu abegikor bat egin baitzidan. haien bekaizgoak harrotu ninduen oharkabean eta, harroaldiarekin batean, **arraitu** eta hantu nintzen. Joan Mari Irigoien

Eta soinu arrai haiek **arraitu** ninduten ni ere hatsarrean, baita goibeldu ere handik gutirat. Joan Mari Irigoien

Zeharkatu zutelarik, egun argiak **arraitu** pasabide batetik jarraitu zuten. Xabier Montoia

Eta hura ene bozkarioa!, zeren Elbirak **arraitzen** baitzidan bihotza eta **arraitzen** zidan begia... Joan Mari Irigoien

---

arraitz *iz* segarria.

Bai, ohitura hori izan du etxekoekin: Aiako festetan Amari sega pikatzeko **arraitza** ekarriko zion artean mutil koskorra zela, eta guri, behin erretiroa hartuta, kakahueteak tabernatik bueltan. Xabier Etxabe

---

arraizia *iz* arraitasuna, poza.

Haren itxurak, haren hitzek bainoago, doi bat itzali du nire **arraizia** , eta berehala erran diot sobera garrantzi ematen ziola adiskidantzaren liskar soil bati. Jon Muñoz

arrajin, arrajiten da *ad* itzuli.

Harentzat ere, mündü honen ürrentzean **arrajinen** da Jesüs. Herria

arraka *adlag* arra beteka.

Roteiro-a gira-biran hasia da dagoeneko, eta garagardoa **arraka** segidan eztarrietan barrena. Berria - Kirola

arrakada *iz pl* belarritakoak.

Arrakadak dira belarrietan, sudurrean, bekainean edo titi puntetan eginiko zuloetan kateatzen direnak, ez belarritakoak.Oso noizean behin erabiltzeko **arrakada** dotoreak. Iñigo Aranbarri

" **Arrakada** handiak, eta ilea gorriz tindatzea ere!" pentsatu du, aurreraxeago beroki lodian bilduta doan andre edadetuari erreparatuta. Urtzi Urrutikoeetxea

Urrezko hiruki txikiak eta **arrakada** luzeak belarrietatik dilindan, zilarrezko uztai nielatuak lepoaren bueltan, harribitxizko katea bikoitzak beso-hanken inguruan, perlez, turkesez eta kornalinez nahasitako zintzilikario aberatsak txirikorda luzeen muturretan dar-dar. Karlos Zabala

Tratulariak esku batez belarrietan zituen urrezko **arrakadekin** soinu egin zuen, arduraturik; etxeko nagusiak zizpa armatua atera zuen kasakapetik. J.M. Olaizola "Txiliku"

· Ezker bekaineko **arrakada** zoragarri gelditzen zaiola. Urtzi Urrutikoeetxea

arrakala *(ETCn **3.894** agerraldi, horietatik **2.471** azken sei urteetan)* **1** *iz* irekidura, eskuarki sakona eta luzea. ik **artesitu**; **arraildura**.

Sigi-saga zeharkatu dugu **arrakala** bat, eta artean hautemangaitz, etsaien lubakian beherantz jaitsi gara. Mirentxu Larrañaga

Baziren harrizko lehoi batzuk toki jakin batean, bazen Qaphqa izeneko komunzulo sakratu bat, baziren **arrakala** batzuk akuedukto hautsez bete batean. Juan Garzia

Tamaina bereko hauts geruza zuten aulki guztien esertokiek, eta kotoi zikinezko bolez, kraka ilunez eta zurda beltz luzeez zeuden beteak sofaren **arrakalak**. Koro Navarro

Txostenetan ageri da erreaktoreko ontziak **arrakalak** dituela. Berria - Harian

Txukun eta garbia gehienetan, baina edozein etxetan gertatzen den gisa, behin konponketa lanak egin ondoren, aldameneko gelan espero ez genituen arrailak eta **arrakalak** erakutsian uzten dituena. Pello Salaburu

Elurrak berdindua zuen haran sakon guztia, **arrakalak** beterik, bi aintzirak ezabaturik, harkaitz muturrak betegarriz berdindurik. Josu Zabaleta

Izotz zolako **arrakalak** direla eta 29 kilometroko itzulingurua egin beharko dela, **arrakalak** edozer irensteko gauza baitira. Joseba Sarrionandia

Atea **arrakalez** eta orbainez beterik zegoen; kanpaiaren katea zabuka zebilen, solte. Agustin Otsoa

Bakar-bakarrik zegoela ikusirik, gerrian zeraman aiztoa hartu, eta haren punta sartu zuen erretaulako **arrakalan**. Anjel Lertxundi

Argia itzali eta atea itxi aurretik argizko lerro eta puntuak ikusi ditu zoruko **arrakaletan**. Pello Lizarralde

Hotsa ateratzen zuen: plas, plas eta gero berriro plas, adreiluen **arrakalan** sarturik hantxe jira eta punpaka zebilen ereinotz orri baten erdian. Juan Garzia

Galdutako mendizalea onik atera dute, lau metroko **arrakala** batetik. Berria - Euskal Herria

Kraterrak, **arrakalak** eta dunak ageri dira [Marten]. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ezkerreko eta eskuineko burmuin-hemisferioek osatzen dute aurreko garuna edo burmuina; **arrakala** sakon batek banatzen ditu partzialki bi hemisferioak. Irene Aldasoro

Egun batean **arrakala** handi batek eragotziko dizue bidea, pitzadura saihesteko ibiltzen hasi eta bandera sobietiko apurtu bat topatuko duzue. Joseba Sarrionandia

Labanaren ahoa harrizko paretako **arrakala** txikiren batean sartzea neukan pentsatua, nire abiapuntua markatzeko. Koro Navarro

Kalezulotik Antiguako portalera ateratzen zen; portale hura malda batetik sigi-sagan errepidera jaisten zen harresiko **arrakala** estu ilun bat zen. Koro Navarro

Ezin zen haraino heldu, aurrean **arrakala** ikaragarri eta beldurgarria baitzegoen harkaitzean. Askoren artean

Lurra eta alboetako horma biak **arrakala** sakon batek gurutzatzen zituen. Agustin Otsoa

Lurra alde guztietatik arrakalatzen hasi zen, eta **arrakala** eta putzu sakonetatik ke eta lurrun uholdeak sortzen ziren. Agustin Otsoa

Haien azpian, neurri gabeko zulo batean, amildegi beldurgarri baten hondoan, Loëche ikusi zuten, etxeek goitik Gemmik ixten eta burutzen duen eta behetik Rodanok zabaltzen duen **arrakala** erraldoi horretan botatako hondar bikorrak ziruditela. Josu Zabaleta

Haren masail grisaren **arrakala** luzeak eta haren aho ertzean hasten zen izur sakonak halako angelu bat osatzen zuten. Lopez de Arana

3 irud/hed

Inork ezin du determinatu ea zein maila gorenean gelditu beharko den gizatasuna eta ea zein handia den halabeharrez ideiaren eta bere egikaritzaren artean geratuko den **arrakala**. Ibon Uribarri

Kontua da gorrotatu egiten duela ordaintzen dion inperioa; eta bi aldeen artean irekitako **arrakala** morala ezin dela etengabe konpondu merkataritza-tratu baten bidez. Iñaki Mendiguren

Distira hori iheserako tunel bat da, **arrakala** bat orainean, bururatzen zaio komedianteari. Harkaitz Cano

Joxek oraindik ere maite zuela sinistuagatik, denboraren poderioz bikotearengan **arrakala** galantak sortu zirela onartu behar izaten zion bere buruari. Xabier Montoia

Arazo horrek **arrakala** sakon bat sortu bide dit gogoan, ideien ordenan eta logikan. Josu Zabaleta

Ipurditik ematen karraitu zaio, bere nahikundearen indar guztiaz, esku bat potxotxeko **arrakalan** sartzen dion bitartean. Juan Martin Elexpuru

Orduan beltzarana bizkarra ferekatzen hasi zaio; makurrarazi du haren gorputz atzealdea begi bistan izateko, **arrakala** igurtzi dio eta hatz bat zuloan sartzen saiatu da. Juan Martin Elexpuru

Azaltzeko zailak izan arren nolabait desobedientzia garaile bat adierazten zuten espresioetan, horrekin -hala iritzi nion- lortu balute legez zerbait aldatzea, **arrakala** bat egitea, kalte egitea ezarritako ordenari, egunerokotasunaren berdintasunari. Urtzi Urrutikoetxea

Edonola ere, toki arriskutsu honetatik, Patuaren **Arrakala** honetatik, ez dakit horrela deitzen den, apur bat urrun gaitezke. Agustin Otsoa

4 ***arrakala digital*** *(corpusean ez dago; ETCn **48** agerraldi; horietatik **29** azken sei urteetan)*

Arrakala digitala terminoaren erabilera pasa den mendeko 90ko hamarkadaren erdialdean AEBetan hasi zen Bill Clinton Clinton Administrazioan (1997-2001), teknologia berrien hedapenean teknologietara sartu aurreko aldea aipatuz, "konektatuak" eta "ez konektatuak" zirenei aipamen eginez. ETC-entziklopedia

2020rako **arrakala digitala** murriztea agindu zuen NBEk. ETC-prentsa

Bigarren **arrakala digitala** gerta daiteke, emakumeekin. ETC-prentsa

Arrakala asko ditu barnean **arrakala digitalak**. ETC-prentsa

Larrea ere bat dator teknologia alor guztietara zabaltzearekin: **Arrakala digitala** eragotzi behar dugu. ETC-prentsa

Arrakala digitalean daudenak abandonatu gabe, garai berrietara egokitu, eta ez diogu inori huts egin behar. ETC-prentsa

Saltoki ertain eta txikien kalterako izaten den **arrakala digitala** ere murriztu egin beharko litzateke, eta baita sektorearen gaineko zerga sistema berrikusi ere. ETC-prentsa

Ezin da zuzenean estrapolatu, baina han ohartu dira arazorik handiena ez dela adineko jendeak izan dezakeen **arrakala digitala**, baizik eta hizkuntza teknikoa. ETC-prentsa

Arrakala digitalaren ondorioa da hori. ETC-prentsa

5 ***genero arrakala*** *(corpusean ez dago; ETCn **82** agerraldi; horietatik **69** azken sei urteetan)*

Kultur diziplinetan dagoen **genero arrakala** aztergai . ETC-prentsa

Baina aldarrikapen zerrenda luzea daukate oraindik esku artean: KPI bidezko gaurkotzea, gutxieneko 1.080 euroko pentsioa, iraunkortasun faktorea desegitea, gutxieneko 1.200 euroko soldata, **genero arrakala** desagertzea pentsioetan eta soldatetan, pentsio sistema publiko propioa sortzea... ETC-prentsa

Donostian, Gasteizen eta Iruñean ere elkartu ziren pentsiodunak, urtebetez egindako aldarrikapenak errepikatzeko: hala nola KPIaren araberako eguneraketa, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, sistema propioa, eta **genero arrakala** ezabatzea. ETC-prentsa

Euskal Herrian geroz eta gehiago dira DJ lanetan aritzen diren emakumeak, nahiz eta oraindik **genero arrakala** handia izan. ETC-prentsa

Esparru zehatz horretan **genero arrakala** hagitz nabarmena da: gizon bakoitzeko hiru emakume daude depresioak jota. ETC-prentsa

Bestalde, esparru digitalean dagoen " **genero arrakala** " murriztera ere bideratuta daude ikasketa horiek. ETC-prentsa

Lehenik eta behin, langabezi tasen eboluzioari erreparatu diogu: tasek erakusten digute 2008 urtea arte emakumeen langabezi tasak altuagoak zirela gizonen tasekin alderatuta eta 1993-2003 urte bitartean tasen arteko **genero-arrakala** altua zela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Genero arrakala edo eten digitala interneterako sarbide zein erabilera mailan gizonen eta emakumeen arteko aldea da. ETC-entziklopedia

Esparru akademikotik **genero-arrakala** ikusarazteko konpromisoa duen emakumea da, bereziki euskal publizitatean edo zineman, non oro har, zinemagintzan emakumezko zuzendari gutxi ikusten jarraitzen dugun. ETC-entziklopedia

6 ***genero arrakala digital*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Hirugarren **genero arrakala digitalak** teknologia digitalen eta interneten erabilera aurreratuarekin du zerikusia. ETC-entziklopedia

Genero arrakala digitalaren egituraketan bat egiten du, halaber, YouTubek, ikerketak jasotzen duenez. ETC-prentsa

7 ***sexu arrakala*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Txostenean, azpimarratu dute lotura zuzena dagoela herrialde bateko **sexu arrakalaren** eta garapen ekonomikoaren artean. ETC-prentsa

Soldaten **sexu arrakala** publiko egin beharko dute Erresuma Batuan . ETC-prentsa

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko antzerkiaren, dantzaren, musikaren eta literaturaren alorretako **sexu arrakala** aztertzen duen diagnostiko bat argitaratu du Eusko Jaurlaritzak. ETC-prentsa

Sexu arrakala sakondu egin da, langabezia batez ere gizonezkoen artean ari baita murrizten . ETC-prentsa

Elkarrizketatuek Eustaten datuak aipatuta **sexu arrakala** zegoela aipatu dute, baina INEren datuek hori azaltzen ez zutenez, erreportaje honetan ez dira kontuan hartu. ETC-prentsa

8 ***soldata arrakala*** *(corpusean ez dago; ETCn **352** agerraldi; horietatik **346** azken sei urteetan)*

Ontzat ematen da bertso munduan ez dela **soldata arrakalarik** existitzen, baina interesgarria litzateke aztertzea nola banatzen diren sosak bertso saioetan. ETC-literatura, saiakera

Pribilegio horiek materialak zein immaterialak dira: maiz aipatzen da, esaterako, gizonen eta emakumeen arteko **soldata arrakala** , hau da, emakumeek gizonek baino ia laurden bat gutxiago kobratzen dutela batez beste. ETC-literatura, saiakera

Europar Batasuneko **soldata arrakala** handienetakoa da, Batasuneko batez bestekoa %17koa baita. ETC-prentsa

Edozein arazo konpontzeko errezeta da, baita lan merkatuan emakumeen eta gizonen artean dagoen **soldata arrakala** ezabatzeko ere. ETC-prentsa

Soldata arrakalen amaiera ekoizpena egiturazko erreformekin indartuta iritsi behar dela deritzo. ETC-prentsa

Gure azalean pairatzen dugu ezegonkortasuna, lanaldi partzial inposatuak, **soldata arrakala** , sexu jazarpena... ETC-prentsa

Horren adibide, emakume eta gizonen arteko **soldata arrakala** , batez beste %25-30 ingurukoa dena. ETC-prentsa

Danimarkako selekzioko jokalariek grebara jo behar izan dute gizonekiko **soldata arrakala** hautsi eta eskubide berdintasuna aldarrikatzeko. ETC-prentsa

LABek politika feministak eskatu ditu, %33,6ko **soldata arrakala** kentzeko. ETC-prentsa

Soldata arrakala , handia izanagatik, txikiagoa da EB Europako Batasunekoa baino. ETC-prentsa

Soldata arrakala txikitzeko plan bat aurkeztu du EBk, aurrerapauso faltagatik. ETC-prentsa

UGT-Euskadi sindikatuko idazkari nagusi Raul Arzak gaur argituko du Eusko Jaurlaritzak bultzatu eta babestutako Elkarrizketa Sozialerako Mahaia eta **Soldata Arrakalaren** Mahaiak utziko ote dituen. ETC-prentsa

CCOOk ez bezala, UGTk ez du utziko generoen arteko **soldata arrakala** aztertzen ari den mahaia. ETC-prentsa

Zuzenean zerbitzuko langileei ezarritako erabakia planean xehatutako bi helbururen kontra doa, sindikatuen arabera: kontziliazio erantzukidearen aurka, eta **soldata arrakala** gutxitzearen aurka. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrakala bat** (6); **arrakala batetik** (3); **arrakala sakon** (3)

---

arrakaladura *iz* arrakala.

Harrizko hormak, irtengune eta **arrakaladurarik** gabeak, hogeita hamar oineko altuera zuen, gainaldean kanporanzko hegal batek koroaturik. Agustin Otsoa

---

arrakalatsu *izond* arrakalaz betea.

Platanondo baten kontra estutu zara, bizkarra enbor **arrakalatsuan** pausatuz, eta lepoa, luze-luze jarrita, begiak itxita, mimetizaturik zaude kasik, nahiz eta alkandoraren narrastitasuna naturalegia ez izan. Eider Rodriguez

---

arrakalatu, arrakala(tu), arrakalatzen **1** du *ad* ebaki luzea eta sakona egin, arraildu. ik **pitzatu**[1].

Zutitu eta aldapa neketsua jaitsi zuten ondoren, mendiaren oinalde dardarkarira iritsi zirenean, Sammath Naurek lurrun eta kezko txurruta bota zuen, konoaren alboa **arrakalatu** eta, uholde geldo eta gorgarria osatuz, goitikin eskerga eta goria amildu zen mendiaren mendebaldeko aldapan behera. Agustin Otsoa

Burua bueltatu eta eraikinaren sabaia **arrakalatu** egin zela ikusi zuten, eta hausturetatik kea zeriola. Agustin Otsoa

Harresiak **arrakalatu** egin ziren, hondakinetan amilduz. Agustin Otsoa

Merry harrien desfileari begira zegoen zur eta lur: beltzak eta higatuak ziren, batzuk okertuta, zenbait erorita, hurrengoak hautsita edo **arrakalatuta** ; hortz zahar eta gosetuen ilarak ziruditen. Agustin Otsoa

2 irud/hed

Udako egunik ederrenak ere inoiz trumoi beldurgarriak hondatzen dituen bezalaxe, doktorearen zoriona ere bat-batean **arrakalatu** zuen inon izan daitekeen burutapenik itsusienak. Josu Zabaleta

Zaldi gainetik, behizainari galdetu zion, euskaraz hark ere: -Nongoa haiz? - **arrakalatu** zuen isiltasuna lapurraren ahots gordinak. Anjel Lertxundi

Teilatua eta harrizko horma lodiak zeharkatzen zituen, isiltasuna **arrakalatuz** . Jose Morales

Drogak mila lekutatik **arrakalatutako** edertasun ospel hura, adibidez, irriaren argiak argitu eta berregituratu zuena. Joan Mari Irigoien

3 (era burutua izenondo gisa)

Ahots **arrakalatua** zuen jada disko honetan Billie Holliday handiak. Harkaitz Cano

Horma **arrakalatu** eta erretako batean ordulari bat zegoen, bostak eta bost, leherkariek eraikina jotako ordua. Felipe Juaristi

Landaredi ezin ederragoa sortzen hasi da nire irudimeneko lur **arrakalatuan**, eta harria eta arrabioa besterik ez zen tokian, herrixka bat jaso zuten lehendabizi, hiri bat gero. Berria - Kultura

Bi eliza ikusten ziren, tarteka, aire gardenean, elkarrengandik hurbil, noiz ezkerrean, noiz eskuinean, kotxeak bidean eginiko itzulien arabera: bata zurezkoa eta bazter utzia; bestea harrizkoa, horixka, zikina, **arrakalatua**. Jose Morales

Aladinoren historiak errakuntzaz kontatzen du afrikar magoa bere jauregian pozoitua izan zela eta haren gorputza, drogaren poderioz belztu eta **arrakalatua**, zakur-katuetara bota zutela. Juan Garzia

1978ko uda-ko egun seguraski bero batean eraikuntza zahar hartan sartu eta pasabide **arrakalatuetan** zehar ikasgela hautsez beteriko batera eraman gintuztenean, ordea, dena zen diferentea: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Euli bat jarri zitzaion esku **arrakalatuen** gainean, baina ez zion kasurik egin. Jon Alonso

Hobbiten aurrean, errekaren ubidea arroka **arrakalatuek** osatutako harmailetan eteten zen. Agustin Otsoa

Han, formika **arrakalatu** haren gainean. Josu Zabaleta

Txarolezko zapata **arrakalatu** baten puntaz zeraman konpasa. Lopez de Arana

Tontor **arrakalatutik** suzko errekak jaurtiki zituen. Agustin Otsoa

Spinozak hil arte gorde zuen soingaineko **arrakalatua**, gizakiek ez dutela beti egia maite oroitzeko. Markos Zapiain

---

arrakalatxo *iz* arrakala txikia.

Dukearen aurrera eraman zuten, eta doktoreak, axolagabe, atzamarra jarri zuen haren bihotzean, zeinetara eroso heldu baitzitekeen Dukearen diamantezko alkandorak zeukan **arrakalatxo** batetik. Julen Gabiria

Josu R, barre une hura baliatuz, disko bat ipini zuen, aparailuaren **arrakalatxotik** txanpon bat sartuta. Pedro Alberdi

---

arrakasta *(ETCn **59.146** agerraldi; orobat **arrakesta** g.er.)* **1** *iz* ekintza, erabaki edo gertaera sail baten ondorio ona; nahi edo desiratzen dena lortzea.

Arrakasta eta arrastaka hoskideak dituk. Iñaki Arranz

"Miloi bat umeren **arrakastaren** ama" izan denaren poza sentitu ei du. Edorta Jimenez

1936, amets baten oroitzapena, berak sekula imajinatu ez zuen **arrakastak** eragindako harridura eta luze iraungo ez zielako segurtasun etsitua, aldi berean. Joseba Urteaga

Arrakastaz ere hil daiteke. Ana Urkiza

- Flandrian baduzue **arrakastarik**, euskaldunok! -zirritu egin dit, maltzur, eskumako begia. Koldo Izagirre

Erabateko **arrakasta** bildu zuen Jules Vernek bere eleberrietan geografia eta zientzia jorratuz; baina bide luzea ibili behar izan zuen horra iritsi aurretik. Karlos Zabala

Baina esperientziaz badakigu, arlo honetan orain arte izan diren saioek ez dutela inolako **arrakastarik** izan. Isabel Arrigain

Horretara ezkero, sinesmena galdu samarturik nengoen nire lapurgaiak merkatuan izan zezakeen **arrakastaz**. Juan Garzia

Lola erraz askatu da, baina gizona ostikoz jotzeko egin duen saioak ez du **arrakastarik** izan. Patxi Iturritegi

Buruzagien ideiak esku suhar askori eta jardun sutsuari esker burutuko ziren gero, eta ekimenaren **arrakastaz**, nik ere ikus nezakeenez, zalantza gutxi. Urtzi Urrutikoetxea

Ni baino idazle handi eta sariztatuagorik hurbiletik eta **arrakastaz** interesatu zaionez gero, ez dut hemen behirik, are gutxiago euskal behi erorik aipatuko. Itxaro Borda

Hiru, arrazoia, zioa, hilketa-eragingarria: idazle bat garbitu zuen bere **arrakastaren** bekaitz zegoelako, eta gainerakoak ikertzaileen lana nahasteko... Jon Alonso

Horregatik ez balitz, ez litzateke ezertan nabarmenduko, ez du inoren arretarik pizten, itzala bera baino hutsalagoa dirudi: Peru batek nekez lortzen du **arrakastarik** ezertan. Anjel Lertxundi

Horretarako luzaro bizi behar izan badu ere, ospearen eta **arrakastaren** eztia ondo dastatu eta gozatuta hil baita Orioko jenio handia, bere jenialtasunaren handiaren eta jendearen mirespen ez txikiagoaren jakitun, sarraskizaleak gorabehera eta museoak museo. Joxerra Garzia

Sekulako **arrakasta** izan zuten, batez ere gazteen artean. Jose Morales

Umearen ezpainek titi puntak bilatzen zituzten goseti, **arrakastarik** gabe. Itxaro Borda

Emakumeak tratatzeko garaian, haiekin **arrakastarik** ez duen gizonak bezala jokatzen zuen. Karlos Zabala

Saiatu dira, bestalde, euren jarrerak eta egiturak beste hiri batzuetara eramaten, **arrakastaz**. Pako Aristi

Orain diot; orain, inork arriskutsu dela ukatzerik ez daukan plan bat **arrakastaz** burutu dudan honetan. Juan Garzia

Bizkaian berean zuen izan, lehenbizian, bi anaien deiak **arrakastarik** handiena, gero oihartzuna heldu zitzaien gipuzkoarrei eta urrunago nafartarrei, Lapurdiko edo Zuberoako istudiante batzuei, bai eta Ameriketako bertsolariei. Piarres Xarriton

Bahekien Ina bezalakoen artean heukan **arrakastaren** berri, ordea, eta horregatik gustura eta seguru aritzen hintzen beraiekin, beste batzuekin ez bezala. Jokin Muñoz

Baina, ez dudarik izan, beirakien dendan ontziak eurak ere zure **arrakastaren** alde aritu ziren. Xabier Aranburu

Gero kostaldeko presoen, ikastolaren edo errefuxiatuen alde muntaturiko dantzaldietara lehiatzen ziren, neskaka, usu **arrakastarik** gabe. Itxaro Borda

Ateraldien **arrakastaz** oharturik, Arros ausartago jokatzera deliberatu zen. Aingeru Epaltza

Hizkera eredu batek gizartean **arrakastarik** izango badu, bizirik egon behar du, eta zenbat eta bizitasun handiagoa izan, hau da, zenbat eta hiztun gehiagok erabili, orduan eta hobe. Koldo Zuazo

Espainiar agenteak bazekien Troncoso ez zela gehiegi kezkatuko: Del Valleren bihozkadetara ohitzen hasia zen, nonbait... eta, seguruenik, Del Valleren **arrakastetara** ere bai. Alberto Ladron Arana

Nik uste dot apur bat saltseroa izateak bere baeukala zerikusia haren **arrakastan**. Xabier Amuriza

Orduan, bere herrialdeko gotorlekuak hartzera joango da, baina **arrakastarik** gabe; bertan eroriko da, eta arrastorik ere utzi gabe desagertuko. Elizen arteko biblia

Azken bolada hartan, gainera, edozein aitzakia zuen on zurrutari ohi ez bezala emateko - nire taldearen garaipenak eta nire **arrakastak**, esate baterako -, eta horrek are lasterragotu zuen prozesua. Joan Mari Irigoien

Behin baino gehiagotan, neure **arrakastak** eragindako zalantza gordinak harrapatzen ninduenean, Mendiondoren lagunartea bilatzen nuen, aldartea alda ziezadan. Hasier Etxeberria

Liburuaren **arrakastak** -edizio mordoa egin zen, eta itzuli eta hedatu Europa guztian- gizon ospetsu bihurtuko du Beccaria, eta erreferentzia saihestezina izango da edozein eztabaidatan. Juan Martin Elexpuru

Atatürk jenerala izan zen **arrakastaren** giltza, berak gidatu baitzuen greko, kurdu eta armeniarren aurkako borroka, aliatuek Turkiaren gaurko mugei onespena ematea lortu zuen arte. Jon Arretxe

2 (izenondoekin)

Eta, zer gertatu zen gero, zerbitzariarekin izandako **arrakasta** sekulakoaren ostean? Mirentxu Larrañaga

Egunkariak zioen Dominiqueren **arrakasta** itzelaren ondoren era guztietako nahigabeak ezagutu zituela bere ordena erlijiosoaren barruan. Joseba Urteaga

Liburu pollita eta herrikoia, **arrakasta** ederra merexi lukeena. Herria

Mendi-maratoiek gero-eta **arrakasta** handiagoa daukate urtetik urtera. Herria

Nekez lor zezakeen instituzio honek **arrakasta** handiagorik dituen baliabide guztiz urriekin. Askoren artean

Egiazko arazoa, horrelako idazki baten **arrakasta** "intelektualak" planteatzen duena, erakusten dituen eskemena da pentsamenduaren historia modernoa irakurtzean. Joxe Azurmendi

Marxismoaren "ikuspegi orokorra" ez du gogoko Liburu Zuriak, baina honen **arrakasta** aparta azaltzeko orduan, Alderdiaren garrantzia luze jasotzen du, Leninen eta Stalinen

aipamen ugariz hornitua. Joseba Zulaika

Hurrengo urtean, ordea, **arrakasta** ikaragarria bildu zuen istorio berak, liburu gisa agertu zelarik. Karlos Zabala

Edonola ere, begirunea genion eta begirunez tratatzen gintuen. "Askotan, **arrakasta** komertzialak ez du balio artistikoaren neurria ematen", esatea gustatzen zitzaion. Anjel Lertxundi

Nire kasuan gainera, are justifikatuagoa iruditzen zitzaidan Victoria gorteiatzeko izkribu bidea erabili nahi izatea, kontuan izanik pare bat urte lehenago eta zirkunstantzia bertsuan lau lerro laburren bidez Eugeniarekin ustez lortu nuen **arrakasta** neurrigabea. Ramon Saizarbitoria

Baina hortik letorke arriskua eta **arrakasta** komunikatiboaren porrota. Andoni Egaña

Arrakasta argia izan zuen ikasleen baitan, hauek orotan eta beti eskerrak bihurtzen zizkioten. Piarres Xarriton

Inork uste ez duenean, **arrakasta** betean, itxura guztien kontra, beren buruak trenera jaurtitzen dituzten horien sendian sartuko nintzela etorri zitzaidan burura pare bat egun lehenago. Hasier Etxeberria

Koldartuta dabiltza eta egiazko intelektualen lehenengo legea ahazturik, hit-paradeetako **arrakasta** hutsalarekin nahasten dute euren zeregina. Hasier Etxeberria

Paradoxaz, **arrakasta** txiki haiek areago gaiztotu zuten egoera, Fernandok antikuario batek bezala jokatzeko eskatzen baitzidan, hots, liburu haiei antigoaleko objektuen gainprezioa eransteko; baina ni ez nintzen horretara ausartzen. Bernardo Atxaga

Beldurrik gabe esan genezakeen osabarentzako prestatutako ezustekoak **arrakasta** osoa izan zuela. Aitor Arana

Vila-Matas aurkeztu izan zaigu, inoiz, gutxika-gutxika, lan itzela egin eta gero, **arrakasta** erlatiboa lortu duen idazle horien paradigma bezala. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arrakasta badu** (7); **arrakasta bera** (10); **arrakasta bildu** (18); **arrakasta bildu du** (8); **arrakasta biltzen** (10); **arrakasta du** (8); **arrakasta duen** (9); **arrakasta ederra** (71); **arrakasta ederra bildu** (13); **arrakasta ederra ukan** (23); **arrakasta edo porrota** (7); **arrakasta eman** (7); **arrakasta gaitza** (58); **arrakasta gaitza bildu** (9); **arrakasta gaitza ukan** (15); **arrakasta gehiago** (27); **arrakasta gehien** (11); **arrakasta guti** (8); **arrakasta handia** (228); **arrakasta handia izan** (81); **arrakasta handia lortu** (26); **arrakasta handia ukan** (25); **arrakasta handiagoa** (22); **arrakasta handiarekin** (15); **arrakasta handiena** (12); **arrakasta handiko** (23); **arrakasta handikoa** (7); **arrakasta handirik** (28); **arrakasta handirik izan** (14); **arrakasta handiz** (49); **arrakasta haundia** (27); **arrakasta hori** (14); **arrakasta ikaragarria** (9); **arrakasta ikusirik** (8); **arrakasta ikusita** (13); **arrakasta itzela** (19); **arrakasta itzela izan** (7); **arrakasta izan** (198); **arrakasta izan du** (30); **arrakasta izan duen** (10); **arrakasta izan dute** (14); **arrakasta izan zen** (8); **arrakasta izan zuen** (53); **arrakasta izan zuten** (9); **arrakasta izanen** (7); **arrakasta izango** (41); **arrakasta izatea** (19); **arrakasta izateko** (38); **arrakasta izaten** (18); **arrakasta izaten ari** (8); **arrakasta izugarria** (11); **arrakasta lortu** (51); **arrakasta lortu du** (10); **arrakasta lortu zuen** (12); **arrakasta lortuko** (11); **arrakasta lortzeko** (31); **arrakasta lortzen** (11); **arrakasta ona** (8); **arrakasta pollita** (30); **arrakasta pollita ukan** (13); **arrakasta ukan** (33); **arrakasta ukan du** (17); **arrakasta ukanen** (7); **artean arrakasta** (11); **aurten ere arrakasta** (7); **badute arrakasta** (15); **baina arrakasta** (14); **baino arrakasta** (20); **baino arrakasta gehiago** (9); **batek arrakasta** (13); **bere arrakasta** (10); **betiko arrakasta** (12); **egundoko arrakasta** (7); **erabateko arrakasta** (10); **ez du arrakasta** (8); **gaitzeko arrakasta** (32); **gaitzeko arrakasta ukan** (8); **gero eta arrakasta** (17); **guziz arrakasta** (9); **haren arrakasta** (10); **holako arrakasta** (10); **horrek arrakasta** (17); **horren arrakasta** (10); **ikaragarriko arrakasta** (7); **izan du arrakasta** (14); **izandako arrakasta** (10); **izugarrizko arrakasta** (11); **lortutako arrakasta** (10); **nolako arrakasta** (12); **sekulako arrakasta** (45); **sekulako arrakasta izan** (12); **sekulako arrakasta ukan** (8); **sekulan baino arrakasta** (7); **ukan du arrakasta** (10); **ukan dute arrakasta** (15); **urte guziz arrakasta** (7); **zer arrakasta** (15)
>
> **izandako arrakastak** (7)
>
> **arrakastaren gakoa** (7); **arrakastaren giltza** (11); **arrakastaren ondoren** (8)
>
> **arrakastarik ez** (11); **arrakastarik gabe** (29); **arrakastarik gabeko** (10); **arrakastarik handiena** (13); **arrakastarik izan** (57); **arrakastarik izango** (16); **arrakastarik lortu** (10); **ez du arrakastarik** (12); **ez zuen arrakastarik** (16); **inolako arrakastarik** (7)

---

arrakastadun *izond* arrakasta duena.

Horrek ez du balio, jakina, jendaila txepelarentzat, zeren jendaila txepelak errespetu edo beldur sakratu batekin onesten baitu **arrakastaduna** eta, txepelkeriaren gaindiduran, zorionez -zorionak emate ustelez- janzten, deskuidatu ezkero. Iñaki Segurola

Arrakastadunari merkatuko zenbaki sariduna egokitzea besterik ez zaio gertatu, egia, baina... "zerbait egingo zian, ezta?". Iñaki Segurola

Arrakastadunari gaizki begiratu behar zaio, eta gaizki begiratzen zaio. Iñaki Segurola

---

arrakastagabe *izond* arrakastarik ez duena.

Wall Street lapur zulo bat dela sinestea baliagarria da lapur **arrakastagabe** guztientzat, zerua iristeko esperantzaren ordez. Xabier Olarra

Azterlan honen lehenagoko zati batean jada aztertu dugu luze Gizarte Helenikoaren kolapsoa kristautasunaren edo honen lehiakide **arrakastagabeak** izan ziren Ekialdeko beste edozein erlijioren sarrera jasan baino askoz lehenago gertatu zela benetan. Iñaki Mendiguren

Kritika honek soilik zedarrizta dezake gure asmo espekulatibo oro esperientzia ahalgarriaren alorrera, ez hainbat saialdi **arrakastagaberi** buruzko burla hutsaren bitartez. Ibon Uribarri

---

arrakastaldi *iz* arrakastatsua den aldia.

Berrogeita hamarreko urteetan, bitarteko metabolismoaren analisiak izan zuen, bereziki, harrigarrizko **arrakastaldi** luzea. Juan Garzia

---

arrakastatsu *izond* arrakasta handikoa, arrakastaz betea.

Eta, aria zail baina beti **arrakastatsu** bat ondo abestu berri duen artistaren antzera, eseri, hatz bustiak atorran lehortu, eta bere buruaz harro begiratu zien aretoan zeuden guztiei. Jose Morales

Egia esan, ekimen **arrakastatsu** horretarako ezin izan zen egoitza aproposagorik aukeratu, besterik ez bada ere, Antzoki Zaharra arimaz beterik dagoelako. Martin Anso

Inoiz egia esan ez dudalarik, ez dakit zer plazer eman dezakeen gezur **arrakastatsu** batek. Matías Múgica

Arrakastatsua izan dadin izerdia eta burua beharko ditugu. Pablo Sastre

Orduko telekomedia **arrakastatsuren** batean zer edo zer lortuko ziola Pacok agindu, eta gauza zen hartan sinetsirik hilabetetan bizitzeko, zorioneko deia noiz jasoko zain. Xabier Montoia

Hiruna liburu aski **arrakastatsu** zuten argitara emanik; eta hori, poesiaz ari garelarik, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Josetxo Azkona

Ez zen inola ere haiek pentsatua zuten iritsiera **arrakastatsua**. Iñaki Mendiguren

Hala ere aurtengoa "orain arteko ekitaldi **arrakastatsuena**" izan dela adierazi du Miguel Martin Jazzaldiko zuzendariak. Berria - Kultura

Aroa alde, aski **arrakastatsuak** izan dira aurten ere Donibane-Ziburuko estropadak. Herria

Confebaskek LBHren garrantzia aldarrikatzen duenean, ez da lehenengoez ari, baizik bigarren alor **arrakastatsu** horietaz. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Milenioaren hasiera hau **arrakastatsua**, oparoa eta zoriontsua izan da guretzat. Joseba Sarrionandia

Baina oso gutxi falta izan zuen **arrakastatsua** gertatzeko. Rafa Egiguren

Ez, hala ere, oraingo merkantzia **arrakastatsu** eta iragankorren ohiko abiadura azkarra, baina bai bertsolaritzaren mugimendua ausartzen den adinako abiadura. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gizartean ate guztiak zabalik zituen gazte **arrakastatsua** gizarteko baztertuen aldera igarotzen da oso-osorik. Askoren artean

Hagridek goibel samar zegoela ematen zuen, eta haren lehenengo eskola **arrakastatsua** izatea nahi zuen Harryk. Iñaki Mendiguren

Baina zer kontatuko dizut zuri, atomoaren egitura **arrakastatsu** bat proposatu zenuen eta! Fernando Morillo

Hastapenean ez zen oparotasunean ibili, baina negozio **arrakastatsuak** izan zituen Lehen Mundu Gerran, eta bigarrenean onurak are handiagoak ziren. Patxi Zubizarreta

Hamaika aldiz **arrakastatsu** bide izandako jarrera harturik hurrengoaren zain gelditu zen. Migel Angel Mintegi

Liburua argitaratzen da eta aski **arrakastatsu** gertatzen. Jose Angel Irigaray

Baina oztopoak oztopo eta zailtasunak zailtasun, borda txikietan ere gauzatu ahal izaten dira iraultzak, eta batzuetan, gainera, **arrakastatsuak** izaten dira emaitzak. Koldo Zuazo

Baina hondarrean, hamabost axola, gasna **arrakastatsuen** ontzeko gaitasuna ukatzen ez zioten bitartean! Itxaro Borda

Hiru sasoi horiek **arrakastatsu** suertatu ziren eta haiekin lotutako ospakizun eta koarta-tenporak ere bai. Pello Zabala

Edo orain arte bideari dagokionez soilik huts egin baldin badugu, zein iragarpen erabil dezakegu, berriro ere bilatzeari ekinez gero, geure aurrekoak baino **arrakastatsuagoak** izango garela itxaroteko? Ibon Uribarri

Dessert storm (Basamortuko ekaitza) operazioa oso **arrakastatsua** gertatu zen. Txema Ramirez de la Piscina

Badirudi - gazte garaietako usteak nolakoak diren jakinez - Lázló - Bíróren asmoa zela medikuntzako ikasketekin batera hipnosi-saio **arrakastatsu** haiek tartekatzea eta bateratzea, eta batak bestea baztertu gabe biak aurrera eramatea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gero, baina, droga utzi eta gizon oso **arrakastatsua** egin zen. Gotzon Garate

Urteetan ahalegindu izan balira ere, Bain-darrek ez zuketen ondorio **arrakastatsuagorik** lortuko. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrakastatsu bihurtu (3); **arrakastatsu gertatu** (3); **arrakastatsu gertatzen** (4); **emanaldi arrakastatsu** (3)

arrakastatsua da (4); **arrakastatsua egin** (8); **arrakastatsua gertatu** (4); **arrakastatsua izan** (109); **arrakastatsua izatea** (3); **arrakastatsua izateko** (5); **bezain arrakastatsua** (4); **bide arrakastatsua** (4); **biziki arrakastatsua** (4); **egun arrakastatsua** (3); **erantzun arrakastatsua** (3); **guziz arrakastatsua** (4); **ibilbide arrakastatsua** (3); **lan arrakastatsua** (4); **liburu arrakastatsua** (4); **nobela arrakastatsua** (3); **operazio arrakastatsua** (3); **operazioa arrakastatsua izan** (3); **oso arrakastatsua izan** (9); **prozesua arrakastatsua izan** (3)

arrakastatsuagoa izan da (3); **askoz ere arrakastatsuagoa** (3); **baino arrakastatsuagoa izan** (3)

eleberri arrakastatsuaren (3); **film arrakastatsuaren** (3)

arrakastatsuena izan da (3); **artean arrakastatsuena** (3)

arrakastatsuenetako bat izan (3)

---

arrakastatsuki *adlag* modu arrakastatsuan.

Kilometroak izeneko besta **arrakastatsuki** iragan da Lazkaon joan den igandean. Herria

Asteburuko gainerateko ekitaldiak ere **arrakastatsuki** iragan dira. Herria

Irisarrin igandean zoin goxoa izan zaioten sindakataren adixkide guzieri hain **arrakastatsuki** urtemuga horren ospatzea! Bezperatik jadanik hasia zen haatik besta, mahaininguru aberats batekin. Herria

Sagu bikietan egin diren azterketetan ondokoa ikusi izan da: birusean gertatuko bi aldaketa nahiko direla infekzioaren garapena desberdina izateko; kasu batean **arrakastatsuki** borrokatua izateko, eta bestean gaixoak infekzio kronikoa izan eta heriotzaraino eramateko. Berria - Gaiak

Aurten, Uztaritzen iragan da kantonamenduko abere primaketa, **arrakastatsuki**, uztailaren 20an. Herria

Lehen aldikotz muntatua den Iñacio Etcheveste lehiaketa **arrakastatsuki** abiatu da, Sarako besten karietara. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrakastatsuki iragan da (7); **arrakastatsuki iragan dena** (3); **eguna arrakastatsuki iragan** (3)

---

arrakatu, arraka(tu), arrakatzen du *ad* arrakalatu.

Eguzki beheratuaren argiak, trabeska jotzen zituen hodeirik gabeko zerutik landa ia berdeegian zehar, herriko etxetxoak -hezetasunak orbanduak eta udaldietako bero luzeegiek **arrakatuak**-, baratze hutsak, patio grisak -erdian, ukuilu eta oilategien nahasmenduan masustondo zaharren bat ikusten zela-. Josu Zabaleta

---

arrakeria *iz ipar* arraren nolakotasuna, gaitsezgarritzat markatua.

Emazte gisa beti, nonbait **arrakeria** horren menpe izan zen, bere obran ez ezik. Berria - Kultura

Oro har, garai hartako obra osoa zintzilik dago, itzala eta argia, emetasuna eta **arrakeria**, betea eta hutsunea, latza eta goxoaren artean. Berria - Kultura

---

arrakero *izond/iz* zekena, zikoitza.

Arrakeroa dadoekin haserretzen da, pintorea pintzelarekin eta bakoitza bere tresnekin; tresnek zailtasunak sortzen dizkietela konbentzituta daude denak. Imanol Unzurrunzaga

Neska txekiarrak hasperen egin zuen **arrakeroari** begira. Berria - Kultura

---

arrakesta ik **arrakasta**.

---

arrakonkista ik **errekonkista**.

---

arrakontru ik **errekontru**.

---

arralaba *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* emakumezko biloba. ik **arraseme**.

Entzuten da gehiago, asumituago, naturalago, estigmata gainditurik "Tupindegiko Roxalien" **arralabak** Tupindegian bizi dira beti, baina euskaraz eta ezpain gorria lore. ETC-literatura, saiakera

Euskara iragan da familian, hauspoarekin batean: hiru **arralaba** dira, euskarari atxikiak, baina tokiari atxikiak oroz gainetik. ETC-prentsa

---

arraldetar *(corpusean ez dago; ETCn **86** agerraldi) iz/izlag adkor* Goenkale telesaileko Arralde fikziozko herrikoa.

AEKren egoitzatik **arraldetarren** sukalderaino. ETC-prentsa

Isilpekoa da guztia, aipaezina, baina pentsa zenbateraino sustraituta dagoen gurean, **arraldetarren** artean ere ohiko korapiloa baldin bada hirigintzak usteldutako zinegotzi eta enparauen egunerokotasuna. ETC-prentsa

Beranduago, ordenagailuari esker, **arraldetar** belaunaldi berrien biribilketa are latzagoak hurrupatzen genituen, bargoek gaxura bezala, muinean galdera bakarra bermatzen zitzaigula: gaizkiaren eta gaiztakeriaren zurubian noraino joango dira? ETC-prentsa

arrallant *iz izond ipar* sinpatikoa, maitagarria.

Neska horri berari erran zioen aitak: "Xuk kasu egiten ahal duxu! **Arrallanta** xira! Haatik hok ez ditxu holakoak, gero!". Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gizon **arrallanta**, Ameriketako zonbait urtek ez zakoten ez herriaren ez etxearen amodioa kendua, gainera bere girixtino urratseri atxikia zagola. Herria

Gizon **arrallant**, konpainia goxokorik balin bazen, Pierre zagon, amodio balinbazaukan bere sort etxe ala herriarendako, handiagoa zuen zaldiarendako, pazientzia eta doinu bereziekin hezten zituen bortitzenak ere. Herria

---

arralleria *iz ipar* txantxa, broma.

Beharrik publiko hori ona baita eta prestua, jokoaren faltan **arrailleria** batek oro arranjatzen ditu, biperrak salda hila bezala. Herria

Denak gogotik hasiak, ala Biscouby eta berdin ere Muscarditz burutik buru, **arrailleria** eta josteta guti zen. Herria

Josteta txarra hori, beldur latz sendimendu minkorrak ekarri dituena, egia ez bazen ere, ez baitira holako **arrailleriak** zilegi. Herria

Arraillerian arizan gabe sekula. Piarres Aintziart

Indurainek berak ere parte hartuko du baina berak erranez ez dakiela bururaino heltzeko gai izanen den, doi bat **arrailleriarekin** haatik hori. Herria

---

arrama *iz* zuhaitzen eta kidekoen adarra.

Basoan barrena bakarrik nabilenean, lantzean behin asaldatzen nau bizirik dagoen nire beso galdua haizeak astintzen duen urki batean, gorengo **arrama** batean, orein-adar bost hatzetan bifurkatuaren puntan ote dagoen sentipenak.Bat-batean, ibaiaren korrontea bertan seko gelditu zen, horma ikusezin baten aurka jo balu moduan, **arrama** gorgarri bat zerion bitartean. Harkaitz Cano

Zuhaitz bakoitzaren **arrametan** gora amona bana doan baso batean dabiltza. Harkaitz Cano

---

arramaiatz *iz ipar* ekaina.

Hala nola **arramaiatzaren** seian, Normandian lürrealatü zirela Aliatüak, mapan erakutsi zeigün errejentsak; **arramaiatzaren** 27 an, alemanak Ospitalepean bortizki sartü zirela. Herria

Gutuna eta CVa IKASera helaraz **arramaiatzaren** 25eko berantenaz (Lota jauregia - 64480 Uztaritze). Herria

Erroi aztapar beltzak, **arramaiatzean**. Herria

Urte oroz bezala Xiberoko Gaü Eskolak antolatzen eta proposatzen dütü Xiberotarrez kurtsoak, 6 oren astean, ürrietatik **arramaiatzealat**. Herria

---

arramaka *adlag* orroka, oihuka.

Branek, asuntoa zail samar ikusirik edo, pare bat bider zaunka egin eta handik **arramaka** joan zen, hainbeste gorrotatzen zuen doinutik urrun, babesleku baten bila. Joanes Urkixo

---

arramantza ik **harramantza**.

---

arramoldaketa *iz ipar* birmoldaketa.

Gure lana, parropien **arramoldaketa** horren ildotik beraz, hats berri baten edo oldar berri baten nolazpait emaitea Elizari. Herria

Beste obra frango ere akulatuko dela, hala nola Ravel izeneko kaiaren **arramoldaketa** bai eta Postako aintzinean den plazarena. Herria

Arramoldaketak euskal kulturaren sailean. Herria

Ondo hortan eginen da gaitzeko **arramoldaketa**. Herria

Itzulgune berri bat ezarri dute hor eta iduriz hola akulatu **arramoldaketa** arras egokia da. Herria

Abiatu duten **arramoldaketan** auzotegietan biziguneak antolatu nahi dituztela dio Grenetek. Berria - Euskal Herria

---

arramoldatu, arramolda(tu), arramoldatzen du *ad ipar* birmoldatu.

Zonbat etxetan ezarri ote du argia bai eta ere elektrikarekin erabiltzen diren errementak moldatu eta **arramoldatu**! Herria

Akize, Baiona eta Tarbesek diosesa bakar bat egin zuten Napoleonek Frantziako eliza **arramoldatu** zuelarik konkordatu baten estakuru. Xipri Arbelbide

Bainan oroz gainetik gure herriko korala eta musika ditu **arramoldatu** eta edertu. Herria

Etxea **arramoldatuko** dute, hein bat goraturik, nahiz goratze hori ez den denen gostukoa, hiru bizitegi eginen gaineko aldean, saltegi bat eta aparkaleku batzu azpian. Herria

Turismoa behar litake arrunt **arramoldatu** nolazpait. Menane Oxandabaratz

Behar-orduak ez direlakotz batere lehengo hek berak, jandarmek arrunt **arramoldatu** dute beren sarea eta azken denbora hotan aintzina arramoldatzen ari. Herria

Xede horietarik batzu **arramoldatuak** izan dira jadanik. Herria

Alderdiak bere begitartea berritu du, hala nola "Iguzki lore" agerkaria **arramoldaturik** eta Web gune arrakastatsu bat idekirik. Herria

Zubiaren puntako itzulgunea arrunt **arramoldatzen** ari baitute, zabaltzen eta edertzen. Herria

Gainerat gure biltokia **arramoldatzen** lotuak direla eta molde berean ezker pareta. Herria

Bigarrenik, elkartasun handiagoa bermatzeko xedez, legea **arramoldatzeko** proposamenak eginen dituzte. Berria - Euskal Herria

Deliberatzen du uhasteek urte oroz eremaiten duten Someder zubiaren azkarkiago **arramoldatzea**, herri horek bertze herrialde batekin loturak ukaiteko. Herria

Aspaldian, hogoita-hamar bat urte huntan segurik, aipu da xoko horren **arramoldatzea**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arramoldatu behar** (3); **dena arramoldatu** (3)
> **horren arramoldatzea** (3)
> **arramoldatzen ari** (3)

---

arramoldatze *iz* birmoldatzea.

Bere aldetik postak erran die hautetsiei heldu diren hiru urtetako **arramoldatze** guzien eramaiteko metodoaren berri emanen diela heldu den irailean 1871-an, gerlaren ondorioz, Alemaniak harturik Alsazia gehiena eta Lorraine eskualdearen zati on bat, **arramoldatze** batzu izan ziren. Herria

Gobernuaren **arramoldatze** zerbaiti plantatzen ahal litake, Jean-Pierre Raffarinatxikiz gobernuburu edo berdin Jean-Pierra Raffarin bera ere baztertuz...! Herria

---

arramoldatzeño *iz adkor* arramoldatze xumea.

Salbu, hauxe gertatu da halere, jendetzea ainitz emendatu den tokietan, **arramoldatzeño** batzu izan direla. Herria

---

arran 1 *iz* zintzarria.

Kaskabilak ere izaten genituen zintzilik, salgai; baita aizkorak, mailuak, uhalak eta **arranak** ere. Txillardegi

Etxea berak imajinatu zuen bezalakoxea da: altzari kaxkarrak, apaingarri mordoiloa (portzelanazko artzaintxoak, behi-**arranak**, ostruka-lumaz egindako euli-zanpagailu bat), irrati baten durundioa, kaioletan txoriak txilioka, katuak oinen artean nonahi. Oskar Arana

2 *arran-hots* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Horrelako pasarte bat pentsatze hutsak tarteka deragidan dardara korporala kontrolatzeko, leihoari heltzen diot, nondik gaua, ez hainbeste ikusten, baizik oihanez lehertzear sumatzen den, azienden **arran-hots** distante baina trinkoz, zeinak bareki bezain solemneki berresten duen benetan bakarrik nagoela. ETC-literatura, saiakera

---

arrañatu, arraña(tu), arrañatzen du/da *ad ipar* arranjatu.

Orduan, Luzaideko arotza, Juan Pello Erviti-ri sartu behar izan zitzaion, kordez ontsa loturik, eta azkenean tuioa **arrañatu** zuten eta ziloa tapatu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haietarik bat zilatu zitzaien eta **arrañatu** edo konpondu behar ukan zuten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ahal bezala **arrañatu** ginen, ez sobera ontsa, nahiz eta esperientzia puxka bat bildua genuen. Marzel Etxehandi

Xahartu eta eritu delarik, etxean **arrañatua** duen alabak, artoski artatu du bere ama. Herria

Beharrez bera joanen dela, mutikoa etxean atxikitzen dutela oraino eta hitzemaiten du zerbait **arrañatuko** duela mutikoaren familia ez dadin arrangura. Michel Oronoz

500 urte hartan haserre gorrian zebiltzan ezin **arrañatuzko** edo konponduzko kasutan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

arranbel *iz* arkua.

Sarritan pentsatu dut sakon-sakonean P. basajende horietakoa zela, ehiztari hutsa; ehizara doanak ez du eskopeta hartu besterik egin behar, edo, hobe, azkona eta **arranbela**, eta oihanean barrena sartu: arrakasta zein porrota, beraren ez beste inoren baitan daude. Juan Garzia

Bidaurreko Corbaran jauna, Nafarroako jauntxorik aberatsena da, eta bere gisako barrengaizto askorekin batera, mugaz haruztik bota du eguna, Learza eta Matxalako zenbait etxetan kupelak irauliz, jantziak ohostuz, jendea inolako gupidarik gabe bertan garbituz, eta azkonak, **arranbelak**, labanak eta zernahi gauza lapurtuz. Patziku Perurena

Hala nola, eskerronezko bestak, xabalina jaurtiketak, zaldizkoen edo oinezkoen itzaleko gudukak, herensuge edo armagizon itxuradunekin, elkar joz beso batean beste besoan baitute min hartzen, ariketak **arranbelekin**, baleztekin, masailekin, pilotan, borrokan, lasterkan jokatuz, zurezko borobilak eskuz, mazoz edo mailuz bultzatuz, Piarres Xarriton

---

arranbelari *iz* arkularia.

Seigarrenekorik erraten da, harritzeko dela nola guztiek zoriona gura dugun eta behar genukeen hura begien aitzinean ezarri jomuga bezala gure ekintzen zuzentzeko, hala nola **arranbelariek** helmugan ezarri jomugara beren geziak zuzentzen dituzten, eta helarazten, nahiz hauek guti diren, gauza horren egiten saiatu diren beste guztien aldean. Piarres Xarriton

---

arranda *iz ipar* errenta.

Besta berritako prosezione hori gelditzen da gibeleratekoan Irauzketa deitzen den etxe hortan, hori baitzen Luzaideko lehenbiziko Eliza eta ospitalea, lehenbiziko lurrak irauli artean, hor ziren ordaintzen Elizari *diezmos* deitzen zen **arranda** hori, etxe eta azinden gainean. Herria

Garai hartako sos kopuru haundia baitzen 6 dukadoko **arranda** hori, deliberatu zuten erdirat jeustea azindadunen **arranda** hori, bestenaz azinden saria laster joanen zela **arranda** ordaintze hortan. Herria

Hervé Gaymard minixtroa, gobernuko diruzain handia, gaitzeko etxe ederrean bizi zela, bi bizitegi zabal batetaratuak izanik, orotarat sei ehun metro karratuko eremua, berak sos bat pagatu gabe, estatuaren gain, erran nahi baita gure gain, hilabetean hamalau mila euroko **arranda**-saria! Hamalau mila euro ez da gero sos bat! Herria

Haurraren hazteagatik, sos poxi bat amari emateko, bosgarren estai trixte honetan nago, ahal bezain **arranda** ttipia pagatuz eta jan-tornu gisa ez dut ardurenean ogitarteko txar bat baizik hartzen. Janbattitt Dirassar

Ehun bat bizitegi eginen dira sozial-mailekoetarik, jendeak **arrandan** hartzeko. Herria

Aurten hasiko dira etxegune berri baten muntatzen, sozial-maileko 150 bizitegiren egiteko, batzu **arrandan** hartzeko izanen direnak, besteak aldiz hartzaleak emeki emeki beretzen ahalko. Herria

Azken hilabeteetan Angeluko seroretan izanki, oso gaizki osagarri aldetik, eta prefetak ordezkari bat igorri zion 6.000 liberako **arrandaren** truk demisionea eman zezan eskatzeko. Xipri Arbelbide

Batek beste aloiamendu bat xekatuko du, beste biek diren tokian segituko dute bainan **arrandaren** parte bat beren sakelatik ordainduz. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arranda hori** (3)
> **arrandan hartu** (3); **arrandan hartua** (3); **arrandan hartzeko** (6); **zahar arrandan** (4)

---

arrandan *adlag* errentan, alokairuan, alogerean.

Alde batetik sozial maileko bizitegi batzu, **arrandan** hartzeko, bestetik bizitegi batzu hein bat segurik sozial mailekoak heiek ere bainan hartzen dituenak emeki emeki pagatuz beretzeko eraikiko direnak. Herria

Ehun bat bizitegi eginen dira sozial-mailekoetarik, jendeak **arrandan** hartzeko. Herria

Jakin da bestalde Gaymard familia horrek baduela Parisen, eta aski toki ederrean, bizitegi bat frango handia, berak baliatzeko partez ezagun batzueri **arrandan** utzia. Herria

Egoitza batean, bizitegiak **arrandan** izanen dira. Herria

---

arrandatu, arranda(tu), arrandatzen du *ad* errentan eman, alokatu.

Aireko hori zen Iliousin marka errusiarra, ukraniar batzueri **arrandatua** eta nehork ez jakin terroristen joko zerbait ala zer den. Herria

arrandatze *iz*

Lur **arrandatze** galdea: Auzapezak irakurtu du Urdangarin-en lur **arrandatze** galde bat, Kalastrako zekzio D800 zenbakia. Herria

arrandegi *(orobat **arraindegi** g,er, eta **arraintegi**) iz*

Se vende jartzen zuen lokala **arrandegi** izatera itzuli da. Eider Rodriguez

Arrandegia aipatze hutsarekin janguraren harra bihurka hasi zen lekukoen sabelean. Jose Morales

Guri sardina kiloa 0,25 eurotan pagatu eta **arrandegian** 3 eurotan saldu. Berria - Harian

Orain **arrandegian** egiten zuen lan eta, dutxa azpian ordu osoa pasa arren, ezinezkoa egiten zitzaion ustel usaina gainetik kentzea. Jasone Osoro

Nemesio **arrandegiko** zurgina izan zen urteetan. Koldo Izagirre

Atso zaharren bat sartzen edo irteten zen elizatik; neskak gora eta behera zebiltzan, oinez edo bizikletaz, plazako dendetatik **arrandegira**. Josu Zabaleta

Kiloa 13 euroan saldu dute **arrandegietan**. Berria - Ekonomia

"Hori da hori maitasuna!", oihukatzen zuten **arrandegietan** etxekoandre eta jubilatuek, zapo eta bixiguen aho irekietatik soilik irten zitekeela zirudien harridura bozgoratu batez. Harkaitz Cano

Itzuli batzuk egin zituen **arrandegi**, harategi, fruitu eta barazki postuen artetik. Unai Iturriaga

Zakarra astean behin ateratzen zen auzoan, eta, orduan ere, poltsa triste batzuk baino ez ziren egoten **Arrandegi** kalearen kantoian. Lander Garro

Auzotarrek begi onez ikus litzakete epizeria bat, **arraintegi** bat eta haragitegi bat, prentsa saltoki eta diru kutxa bat ere berdin, zergatik ez? Herria

Olio-ozpinezko **arrandegi** bat ere bazen -Buenetxeatarrena-; hango produktu gaziek eragintzat jo beharko dugu, partez behintzat, gudariek sentitzen zuten egarri ase ezin hura. Askoren artean

Eta okindegi, harategi eta **arraindegi** koxkorrak bisitatzen ditut; baita prentsa saltzen duen papertegia ere. Txillardegi

Bazegoen hamabi urteko alabarekin joaten zen emakume bat, auzoko **arrandegiko** saltzailea, potolo berritsu alai huraxe, noski, beltzarana. Berria - Kultura

Erakustuna, frutadenda ondoko **arrandegiko** jabearen iloba, Charly baino lau-bortz urte zaharragoa. Aingeru Epaltza

Barnean badago **arraintegi** bat hotza 40 metro karratukoa. Herria

Bankako **arraintegia**, Urepeleko gasnategia, Aldudeko gazitegia, Kontrabanda erakustokia, Ihizikoa, Aldudarrak bideo eta bertze. Herria

arrandia *iz* handikeria, handiustea; hotsandia, ospea.

Harro mintzatzen zen, mutil gazteen **arrandia** eta barre alaia zuen. Koro Navarro

Andreasen **arrandia** hark sekreturen bat ezkutatzen zuela pentsatu zuen Norak, eta Andreas judua edo baionarra ote zen pasatu zitzaion burutik. Anjel Lertxundi

Feofar miretsi zuten bere handitasunean, eta miraz ikusi zituzten haren emazteak, haren ofizial eta zaindariak, eta ekialdeko **arrandia** hura guztia, zerikusirik batere ez duena Europako ospakizunetan agertzen denarekin. Karlos Zabala

Erakunde militar baten neurriko loria eta **arrandia** erabili beharko litzateke, jakinik ospea, herriaren sentimendu guztiak bezala, lotuago dagoela itxurari mamiari baino. Juan Martin Elexpuru

Berlingo irakaslearen galdera bikoitzari erantzun ordez, **arrandia** hauspotuko dion jakin-mina agertu du: -Galde egiozu zure lagun turkoari nondik datorkion euskal pastoralei buruzko arreta. Anjel Lertxundi

Ehiza trofeo haiek, gainerat, ez ote zuten aitaren **arrandia** eta banteria erakusten, menekoak are menekoago bihur zekizkion amoreakatik, ikuskizunaren ikusgarritasunaz...? Joan Mari Irigoien

Denak lagun dituela, mundu osoko jaun Aita santua **arrandia** handiz sartzen da Asis hirian. Askoren artean

Zaroko elizan ospatu ziren ezteiak, ahal zen **arrandiarik** handienarekin, eta Bautistaren etxean egin zen gero festa. Koro Navarro

Ez, mihi eztitsuak beza **arrandia** zozoa milika eta belaunaren erro prest-prestak makurraraz losintxaren etekinera. Juan Garzia

Ordu arte sekula ikusi gabeko **arrandiaz** lausengatu zituen. Fernando Rey

Ergel haietako ergelena, txoroflauta pikortatu lepamehe bat zen, kaskogaineko negargarri bat erakusten zuena **arrandian**, xingola ordez kordoi ziztrin batekin. Xabier Olarra

Harik eta, mila bederatziehun eta hogeita hamabostean, birraitona **arrandian** hasi zen arte harrobia itxi zieten hargin batzuen aurrean; orduan eman zioten jipoi izugarriarekin hil egin zen. Fernando Rey

Ouroana atzetik dator, oinez, inoren banitate eta **arrandiaren** aldeko zerbitzuak egiteari utzi dionari dagokion gisan. Jon Alonso

Ez zen handikeriarik haren hitzetan, ez **arrandiarik** haren keinuetan, ez nabarmenkeriarik haren egiteetan. Askoren artean

Lola, Balboren andrea, denbora batean leihoan edo Re Umberto hiribidean **arrandiaz** eta pauso luzeak emanaz ibiltzen ikusten nuen neska gorrotagarri eta ezin politago hura zen. Fernando Rey

Ez al nuen nik telebistako programa hartan **arrandiaz** eta nabarmenkeriaz jokatu, boteretsuek menpekoen aurrean sarritan egiten duten bezala, beren jarrera axolagabea hauentzako irain bihurtzen dutela? Joan Mari Irigoien

Xehetasun horiek guztiak halako **arrandiaz** eta halako trakeskeriaz zeuden trataturik, non irudiaren gainerakoarekiko harmonia perfektua zen: hain batasun zorrotza duen margolanik ez dut uste aurkitu dudanik. Monika Etxebarria

Nekatu nintzen beren panparroikeriez eta **arrandiez**, ez nuen beren gustu txarreko umore matxista aintzat hartu. Jon Alonso

Baina Dubos abadeak historialari batentzat okerrak diren iturrietara jo du: poeta eta hizlarietara; sistemak ezin dira oinarritu **arrandiazko** obretan. Iñaki Iñurrieta

Ondra galdua nukeen -jarraitu zuen **arrandiazko** ahotsez. Josu Zabaleta

Gaztela, El Escorial, edo arraza germaniarra, etab., hotsanditzeko haren hitzontzi epiko **arrandiazkoak**, bereziki. Joxe Azurmendi

Fox-trot-en nota minberatuak herrenka ateratzen ziren ateetatik, bluesak, baltseak [...], jira eta bira, **arrandiazko** oroitzapenen ekarle. Lopez de Arana

Ez hiri..., eta ez diat hori garaile- **arrandian** esaten, ez, ordea, nolabaiteko poz pixka bat gabe ere. Xabier Olarra

arrandiadun *izond* harrandia duena.

Burges ttipi, saltzaile, idazkari, lehengo boterearen funtzionario, notarioak ikusiak zituen beren idurikoen aitzinean abilarena egiten, herritar guzien arteko berdintasunaz mintzatzerakoan, Durruty notarioaren bulegoan, noble eta **arrandiadunen** harrokeria aire berdinekin. Elena Touyarou

arrandiaka *adlag* arrandiaz.

Auzoak **arrandiaka** hasten dira kopa bat Fundador kolkoratuz gero, eta Angulok isilpean jasotzen ditu oharrak koadernoan, hurrengo txostena prestatzeko.-Egun ederra, hiltzeko -agurtu gintuen Filibertok, **arrandiaka**. Javi Cillero

arrandiatsu ik **arranditsu**.

arrandiatu, arrandia(tu), arrandiatzen da *ad* arrandia erabili.

Gaztetan, erein zuen berak ere bere olo gaiztoa, bai; **arrandiatu** zen bere adimen askatasunaz eta ukatu zuen Jainkoa lagunen aurrean pubetan. Irene Aldasoro

Nire lepoaren gogorraz **arrandiatu** berri nintzaion Gurreari, baina espantu hutsa izan zen nire aldetik, eta hark bazekien. Aingeru Epaltza

---

arrandikeria *iz* arrandia gaitsezgarria.

Arrandikeriak eta ausarkeriak ondasunak suntsitzen: harroputzaren etxea suntsitua izango. Elizen arteko biblia

Eta hala ere, ez nuke nahi **arrandikerian** ibili, ezpada aurrerago topatuko dugun kontakizun lardatsa leundu. Javi Cillero

Baldin eta soberanoak hiritarrak ohitzen baditu ospe eta **arrandikeriara**, aginduen zorroztasunera, eta zapaldua sentitzen denaren kereila zuzen zein okerrak baztertzera, hiritarrek legeei baino beldur handiagoa izango diete magistratuei, eta hauek segurtasun pribatu eta publikoari komeni zaiona baino gehiago baliatuko dira beldur honetaz. Juan Martin Elexpuru

---

arrandios *izond* arrandiatsua.

Baina, igandero bezala, hots **arrandios** batek betetzen du, marea hots batek. Monika Etxebarria

Betiko eztabaida da, nolanahi ere, azokak bere sorreratik beretik kitatu ezin izan duena: bildumazaleentzat azoka egin, edo jendearentzat kultur ekitaldi **arrandiosoa** bultzatu? Iritziak, denetarik. Berria - Kultura

Ezkaratzean, hondar koloreko librea horiz jantzitako bi lekaio, hedeak eta botoiak zilar huts, beren sillatik jaiki ziren, magiaz bezala zutitu alegia, eskalinata **arrandiosoen** aurrean batzuetan ikusten diren harrizko lehoiak bezala. Matías Múgica

---

arrandioso *izond* arrandiatsua.

Betiko eztabaida da, nolanahi ere, azokak bere sorreratik beretik kitatu ezin izan duena: bildumazaleentzat azoka egin, edo jendearentzat kultur ekitaldi **arrandiosoa** bultzatu? Berria - Kultura

Ezkaratzean, hondar koloreko librea horiz jantzitako bi lekaio, hedeak eta botoiak zilar huts, beren sillatik jaiki ziren, magiaz bezala zutitu alegia, eskalinata **arrandiosoen** aurrean batzuetan ikusten diren harrizko lehoiak bezala. Matías Múgica

---

arrandiro *adlag* arrandiaz.

Ama zeukan aldamenean, Ekialdeko turbante lumadun bat **arrandiro** kulunkatzen zitzaiola buru gainean. Jose Morales

---

arranditasun *iz* arrandia duenaren nolakotasuna.

Gainera, liburutegiak eta basilikak egingo dira, **arranditasunaren** aldetik eraikin publikoekin konparatuz gero izan daitezen berdintsuak. Santiago Iruretagoiena

Horregatik obra guztien azterketa hiru alderditik begiratuz egiten da, hau da, egiteko fintasunaren aldetik, **arranditasunaren** aldetik eta disposizioaren aldetik. Santiago Iruretagoiena

---

arranditsu *(orobat **arrandiatsu** g.er.)* **1** *izond* arrandiaz betea.

Areto luze eta **arranditsu** hartan ez zen tapiz edo zintzilikadura zaharkiturik ikusten, ez eta ehun edo zurezko gauza bakar bat ere. Agustin Otsoa

Argazki **arranditsua** zen, zeremoniatsua eta artifiziala. Ander Irizar

Ez ditut hemen aipatuko herrien biltzea, bozkariozko kantuak, kanpaien joaldi **arranditsua**, malkoen isuri oparoa; ez dut aipatuko ere semeen negarra, adiskideen intziria eta lagunen hasperenak. Askoren artean

Ofizialki (hau da, Maximilian plazara zabaltzen zen ate estuaren gaineko kartel **arranditsuaren** arabera), Roman era guztietako jakiak eros zitezkeen. Alberto Ladron Arana

Tokia ezaguna nuen: erretegi **arrandiatsu** bat, landa-minaren aitzakian kanporatzen diren hiritarren sabelak betetzen espezializatua. Aingeru Epaltza

Jake berokia zabalik jiratu egin zen bere papar harrotua eta bere esku lodietan zehar luze ageri ziren alkandoraren eskumuturrak erakusteko eta ibilera **arranditsuz** jo zuen kioskorantz. Lopez de Arana

Nire guraso burges eta kezkatsuei ere ongi iruditu zitzaien guk karroza eta guztiko eztei **arranditsurik** egin nahi ez izana. Joxe Austin Arrieta

Keinu **arranditsu** batez, Fredek kapapetik zerbait atera eta mahaietako batean utzi zuen. Iñaki Mendiguren

Zuk eragiten al diozu salto matxinsaltoari bezala, irrintzi **arranditsuaz** izua sartzen duelarik? Elizen arteko biblia

Erakunde-mailako doinu **arranditsua** zerion, nonbait, "etxe" soila erabiltzean ez bezala. Mirentxu Larrañaga

Ezin espero zitekeen harengandik inolako hitz sutsurik edo **arrandiatsurik**, gogoko dugun gai batean aurka egiten digutenean ia denok esaten ditugun hitz horietakorik alegia. Jose Morales

Pintura arte (apailu) bereizi bezala, garai hartan eredu gisa hartua zen apailu nagusitik, antzerkiarenetik bereiz, bermatu nahia ikusten du Friedek espazioen bereizkuntzaren eszenifikazio **arrandiatsu** horren atzean. Josu Zabaleta

Abentura politiko zein sentimentalei hitz **arranditsuz** ekiten zien, baina ezkutuko armaz ondo hornituta, aldez aurretik asmatutako gezurrak babesgarri eta etsaientzat galgarri gerta zitezkeen eskutitzak sakeletan. Ander Irizar

Ero **arranditsua**, txoro handiputza. Xabier Olarra

Batzuek ezkontza **arranditsua** nahi izaten dute, oturuntza handiarekin eta gonbidatu askorekin; beste batzuk, berriz, inori ezer esan gabe, elkarrekin bizitzen jartzen dira. Luis Elberdin

2 (adizlagun gisa)

Chester andereñoa, agureak ondoan izan zuen erizaina "azken odol-isuria" gertatuz geroztik, Bain andreak **arranditsu** esaten zionez, gai zen bere kabuz hura artatu eta zaintzeko. Gizonak **arranditsu** eta abegikor agertzen zitzaizkion, Gondorko erara agurtuz burua makurtuz eta eskuak bular gainean. Mirentxu Larrañaga

Arranditsu tentetu zen, eta begi beltzak hobbitengan iltzatu zituen begirada ilunaz. Agustin Otsoa

Matson jaunak hatz-erakusleaz keinu egin zion **arranditsu**. Mirentxu Larrañaga

Eskutik helduta itzuli ziren hirira, atea itxi aurretik azkenak, eta Lanparagileen Kalera iristean dorre guztietako kanpai guztiak errepika ari ziren **arranditsu**. Agustin Otsoa

-Jakin ezazu, jauna -erantzun nion **arranditsu**-, gorroto berezia diedala gauza luze, bikain eta kordelez trazatuei, eta berrehun legoa eginen nituzkeela sokategi baten ez ikusteagatik! Koldo Izagirre

-Eta zuk zer nahi duzu, laztana? -galdetu zion **arranditsu**, Rosierengana jiratzen zela. Lopez de Arana

Snapek ere maltzur irri egin zuen ziegan hara eta hona **arranditsu** ibiliz. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hitz arranditsu (3)

arranditsua zen (3)

arranditsuki *nola adlag* era arranditsuan.

Lagunak **arranditsuki** nituen zain, pozez barrezka. Urtzi Urrutikoetxea

Nire asmoa ez da hemen inolaz ere hau benetan materien ezberdintasunei pisu espezifikoaren arabera gertatzen zaienik baieztatzea, baizik adimen hutsaren oinarri-esakune batetik abiatuta erakutsi nahi dut gure hautemapenen izaerak halako argipena ahalbidetzen duela eta faltsuki onartzen dela, azken hau gainera **arranditsuki** a priori adimenaren oinarri-esakuneari jarraiki baieztatuz. Ibon Uribarri

---

arranditu, arrandi(tu), arranditzen da *ad* handiustea izan.

Ez naiz behin ere **arranditu** edaten dudana edateaz, baina ahalketzeko arrazoirik ere ez dut ikusten. Aingeru Epaltza

---

arranea *interj* arraioa.

Arranea, eta uste duk errazago naizela ni jotzeko, flauta hau baino? Juan Garzia

· Eta halaxe izan zen; pixkana-pixkana, gaztetxoek, beren ama-hizkuntza berreskuratzearekin batera, armak zokoratzen joan ziren, izuz beterik gainera, ez zutelarik ulertzen fusil eta kanoi eta gainerako gudu-tramankulu haiek euren esku birjinetan (eta antimilitaristetan) zer **arranea** egiten zuten. Karlos Linazasoro

---

arranetan *interj* arraioa.

-Arranetan! Irene Aldasoro

Ez, **arranetan**! Irene Aldasoro

---

arrangoiztar *izlag/iz* Arrangoitzekoa, Arrangoitzeko herritarra.

Agorrilaren 14 ean,aratseko 9 etan, errebote estalian, 32. euskal kantu festibala: Lapurditik, Adixkideak **arrangoiztar** koroa eta Celine Mounole larresoroarra. Herria

Jean-Marie Haran ergaraitarra eta Florence Lacoste **arrangoiztarra**. Herria

Mintzatu naiz bereziki bi kantari xaharrekin, bat "manexa" Balerdi **Arrangoiztarra** eta bertzea Xiberotarra, Arabarco Mendikotarra. Herria

Horietan 25 urteko **arrangoiztar** gazte bat, Thierry Idiart. Herria

Plazerrekin jakin dugu maiatzaren hogoi eta seian ezkondu direla Serge Arotçarena Iturrartekoa eta Chantal Etcheverria **Arrangoiztar** gaztea. Herria

Mattin Carrere erretor zenak muntatu zuen talde andana bat, eta geroztik segitzen du aintzina, Arbona, Ahetze eta **Arrangoiztar** multxo bat juntatzen da batean. Herria

---

arrangura *(ETCn **4.496** agerraldi; orobat **arrungura** g.er.)* **1** *iz* atsekabea, intziria; kexa.

Hauietarik zonbait **arrangura** dira gudu tokietan bildu dutela eritasun bat, leuzemia, han erabili baitituzte tresna eta tirakaiak uranioma mendratuz eginak. Herria

Arrangura horiek beti emendatuz joan zaizko eta azkenerat ainitz pairatu du. Herria

Senarra kanpoan dabilen bitartean etxeko bakardadean geratzen denaren hitzak dira, egia bat agertzen dutenak baina **arrangurarik** eta saminik gabe esandakoak. Pako Aristi

Ezer egiteko kemenik gabe, borondatea galduta, eguneroko eginkizunak eta ikasketak bertan behera utzi zituen, aitaren **arrangurak** eta aginduak kontuan hartu gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

Memelokeria irudituko zaizue akaso, baina horrela pasa nintzen eskularruaren galerak sortzen zidan **arranguratik**, eskularruaren galerak sortu zidan poz txikira. Harkaitz Cano

Arestian, hoteleko eskaileretan behera nindoala, Lucie entzun dut, hamaikagarren aldiz bere **arranguren** berri ematen etxekoandreari, eskailerak argizariaz igurzteaz batera. Monika Etxebarria

Oraindik ez ditut **arrangura** hauek bukatu. Josu Zabaleta

Zuri bere **arrangurak**, egitekoak, koaitak, eta ondikoak konta. Pello Salaburu

Ez, maitea, ez naiz zuri kargu hartzen ari, ez dut zure etxe alaian **arrangurarik** jaurti nahi. Eduardo Matauko

Bere **arrangurarik** handiena, bere geroa. Xipri Arbelbide

Airean -esateko modu bat da- gelditzen ziren **arrangurak** eta gaizki ulertuak. Anjel Lertxundi

Den mendreneko **arrangurarik** ukan balu, ez zen sortetxera itzuliko. Daniel Landart

Lau horietan direnen **arrungura**, sozialixt alderdiak aise ezkerragotik behar lukeela ibili. Herria

Bizkitartean, udaberri huntako lehen zenbaki hau moldatzean, hitz bat guziz latza eta biziki hitsa ezin baztertua dugu gure solas eta **arrungura** guzietarik: gerla! Herria

Gelditzen da Basoi, bat-batean **arrangura** batek boza estekan atxikitzen balio bezala eta behako luze bat damaio mutikoari. Michel Oronoz

Ekologisten **arrangurak** entzun eta auzoko batek hauxe esan zuen: "Otso bat akabatzeagatik ez dio ardura". Gotzon Garate

Larru-apaintzailearen **arrangurak** aise isildu zituen Leonelek, boltsa bete zilar eta etortzekoa zen haurraz axolatuko zelako hitza emanez. Aingeru Epaltza

Zorrotzegi izan delako irudipen horrek arrats guzia **arrangurak** janik iraganaraziko diola beldur da. Eneko Bidegain

Ez du horrek erran nahi komentuko **arrangurez** eta beharrez ez zuela axola handirik hartu. Piarres Xarriton

Pistolari eusten nion, sendo, besterik ez; ene baitako **arranguren** gainetik eginbeharraren eta erantzukizunaren itzala zebilen hegan. Edorta Jimenez

Baina **arrangurekin** eta aldarte txarrekin ez goazak inora. Bernardo Atxaga

Bazuen **arrangurarik** ere, jakina, baina Durant jaunak berehala aienatu zizkion. Mirentxu Larrañaga

Baina nik banuen nonbaitik ene gisako **arranguraøø**. Janbattitt Dirassar

ez nekien orduan (baina orain bai) **arrangurarik** -ez huraxe dela zoriona. Txillardegi

Den-denak kexak eta **arrangurak** izan ziren. Jokin Muñoz

Senarra libro uzten du, hortako ez dut deus **arrangurarik**... Menane Oxandabaratz

Egia da beste batek ere baduela bere leku bereizia Baigorriko elizan, baina ez du nehori kalterik egiten eta Ermitak ez du bere **arranguren** zerrendan sartu. Michel Oronoz

Baina, gaurko etapak hogei kilometro baizik ez izanez geroz, ez dut **arrangurarik**. Piarres Aintziart

Adiskideak ez zion jaramonik egin nire **arrangurari**: Anjel Lertxundi

Adierazpen horrek jendearen **arrangurak** ematu zituen. Juan Garzia

Herriaren duintasun eskasak **arrangurak** hazten zizkion. Itxaro Borda

Azken asteetako zera guztia nerabilen gogoan, eta argitu ordez gero eta nahasiago nengoen, gero eta ageriago nahigabe eta **arrangurak**, urratu arte bere zaurian hazka dabilenaren antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

Harritzen naute zuen **arrangurek**. Koldo Izagirre

2 (izenondoekin)

Sortaldetarren artean bizitza ez da ezer; bertatik hartzen da etsimena; gauak argiak dira eta ez dute herrialde hotzetan garunak atsekabetzen dituzten **arrangura** ilunik. Josu Zabaleta

Eta emakumeari ezinezkoa zitzaion bere **arrangura** isilean gordetzea. Mirentxu Larrañaga

Ez zuen, baina, **arrangura** handirik erakusten. Gotzon Garate

Gure bilkuretan zein hautetsiekikoetan ez genuen, gauez ondu agiriez aparte bistan dena, oharpen edo **arrangura** nabarmenik plazaratzen. Itxaro Borda

Bilerako **arrangura** nagusia, behin eta berriz errepikatua, hauxe: Euskal Herritik kanpora, Kataluniako eskualde batzuetako inkontruak salbu, ezer ez. Txillardegi

Albertok ez zien gehiegitan bisita egiten: bazuen aitaren aurkako **arrangura** zahar bat, karrera egiten utzi ez ziolako. Iban Zaldua

Hola segituz norat ari giren, hori da ainitzen **arrangura** pisua… Herria

Petrolaki negozioarekin preseski, aspaldian badira **arrangura** gaitzak. Herria

Abiada bizian eta karranka eginez batera eta bestera etengabe mugitzen zen multzo trinkoa osatzen zuten, eta, asko ziren arren, haien karranka kezkatsuan argi hautematen zen udazkeneko bakardadea, berehala hasiko zen gau luze hotza, **arrangura** antzua. Jose Morales

Nire **arrangura** kirrinkariei entzungor, aulkian eserarazi eta etxetik atera ninduen. Alberto Ladron Arana

Bakarrik uhinek bazterreko harri kozkor dirdiradunetan egiten dituzten kliski-klaskak eta antxeten **arrangura** zorrotzak. Aurelia Arkotxa

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

O! Ai! Ene! Aiei! Helas! Doluko auhenak, alarauak, **arrangura** adierazpen urragarriak, negargarriak: hildakoentzat atsekabegarria. Iñaki Arranz

Eta hartu, ez hartu egon banaiz ere, batere zalantzarik gabe erosi egin dut nire **arrangura** obsesioa doi bat arinduko zelakoan, erantzun lagungarriren bat topatuko nuelakoan. Patxi Zubizarreta

4 ***arrangura izan***

Ekonomia aitzaki bat ateratzen du: **arrangura dela** etxe horren geroaz diru aldetik. Xipri Arbelbide

Dryer **arrangura zen** Harryk bere artista-zerrendatik kenduko zuela-eta, eta bere gorputza besterik ez zuen ordaintzat emateko. Oskar Arana

Gizadiko bi zati horien arteko eztabaida bazitekeen garratz samarra izatea, alde bakoitzak bestearen aurkako **arrangura izango** baitzuen. Iñaki Mendiguren

Zenbaitetan, **arrangura zen** hari eskaini behar zion munduaz. Xabier Montoia

Ipuinaren gaia, dena dela, José María Echevarría protagonista nagusiaren **arrangura da**, beretzat jotzen duen etxera etorri berri diren Rodríguez tarren aurkako arrangura. Iban Zaldua

Joaten da bera bereziki laborariak kexu eta **arrangura direlarik** eta euskara sustatzeko. Piarres Aintziart

EHNE sindikatua **arrangura da**, otsoei jazartzeko neurriak hartu ez eta artzainei behar zaien laguntza ematen. Gotzon Garate

Jaun-andere esposak egiazki **arrangura ziren** mezaren zabalkundearekiko. Itxaro Borda

Norbaitez **arrangura naizenean**, ez diot iseka egiten; zerbait hobea egiten dut: mendekatzen naiz. Jon Muñoz

Gaurko egunean, ainitzen **arrangura da** hori, ez dakigula zer jaten dugun eta zer edaten. Herria

Betiko **arrangura baita** diruaren biltzea gastuen ordaintzeko, laguntzaile jarraikiak xekatzea aipatu da (enpresa eta beste). Herria

5 ***arranguraz***

Niri dagokidanez, **arranguraz** dut neure zortea onartzen. Juan Garzia

-Kezkatuak, beren geroaz **arranguraz** beteak. Jose Angel Irigaray

Une hartan, Éva eskutitz ezezagun haiek **arranguraz** eta suhartasunez aipatzen ari zitzaizkidala, bat-batean arrosondo-zurezko kutxatilaz oroitu nintzen. Ander Irizar

-Goazen -marmar egin zien **arranguraz** Crabberi eta Goyleri, eta desagertu egin ziren hirurak. Iñaki Mendiguren

Arranguraz bizi du bere inguruko eta herriaren egoera. Filipe Bidart

Munttiotek **arranguraz** dioen bezala, "haiek baino langileagoak gaituk gu, baina periferiako hauts edo deabruok kontra ditiagu historia eta kultura, eta horrela nekez jarriko diagu hankaz gora Pandemonium-eko hierarkia". Anjel Lertxundi

-Ez - nioen ironia saihestuz -, John Dunbarekin egon naiz barda... - eta jarraitzen nuen bezperako agerindearen ildotik, bat-batean, nirekiko **arranguraz** hanpaturik: baina zer ari naiz ezer ulertu nahi ez duten hauei neure bizitza pribatu eta intimoaren azaltzen? Itxaro Borda

-Zigortuta egon nintzenean Filchek haren ezkutuari berrogeita hamarren bat aldiz distira aterarazi zidalako - erantzun zion Ronek **arranguraz** -. Iñaki Mendiguren

Ama haurgabetuak, berriz, mendi berdeak oinkatuz, lurrean inkaturiko apatx bikoitzaren oinatzak ezagutu nahi ditu, bazter guztiak begiztatuz, ea nonbait ume galdua hautematen duen, eta, geraturik, baso hostotsua **arranguraz** betetzen du eta etengabe gortarantz begiratzen, txahalaren minak erdiraturik. Xabier Amuriza

Apaiza ikusi zuenean, **arranguraz** bete zitzaion bihotza Permini. Joan Mari Irigoien

Ez zen **arranguraz** ari, lasai eta irribarrez baizik. Inazio Mujika Iraola

Areago, zirtolari dabil zuen **arranguraz** oharturik. Xabier Montoia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ainitz arrangura (5); **ainitzen arrangura** (17); **arrangura asko** (5); **arrangura bat** (31); **arrangura batekin** (6); **arrangura batzu** (20); **arrangura berak** (7); **arrangura berarekin** (5); **arrangura frango** (20); **arrangura guziak** (5); **arrangura handi** (19); **arrangura handi bat** (8); **arrangura handi batekin** (6); **arrangura handia** (8); **arrangura handiak** (34); **arrangura handiena** (8); **arrangura hori** (8); **arrangura horiek** (10); **arrangura nagusia** (9); **arrangura pisu** (14); **arrangura pisu bat** (6); **arrangura pisu batzu** (6); **arrangura pisuak** (10); **askoren arrangura** (8); **bada arrangura** (7); **badira arrangura** (5); **badituzte arrangura** (5); **batzuen arrangura** (10); **bere arrangura** (11); **beren arrangura** (10); **beste arrangura** (19); **beste arrangura bat** (15); **beti arrangura** (5); **ene arrangura** (7); **gure arrangura** (5); **halako arrangura** (9)

arrangurak agertu (6); **arrangurak agertuz** (6); **bere arrangurak** (11); **beren arrangurak** (17); **jendearen arrangurak** (7); **nolako arrangurak** (5)

arrangurarik ez (7); **arrangurarik gabe** (10)

arranguratu zen (9)

eta arranguratua (5)

---

arrangurabide *iz ipar* arranguratzeko bidea.

Beste **arrangurabide** handietan: laborantxako ganbara, euskara eta etxe-bizitza. Herria

Arrangurabide handi-handia etxekoentzat bai eta gizon gazte horren ezagun guzientzat, nehork ezin konpreni zer gertatu ote zaion... Herria

---

arranguragarri *(orobat **arrankuragarri** g.er.) izond ipar* arrangurarazten duena.

Industriak atxiki du jadanik zuen martxa, baina bi xifre **arranguragarri** agertu dira: industri lantegiek ez dituzte beren ekoizpen ahalak osoki baliatzen eta ekoizpen erresalbuak beteago dituzte. Herria

Horiek hola neska eskasia hori zinez larria eta **arranguragarria** da geroari buruz. Herria

Eta hain zaizkigu ere **arranguragarriak** Postak hartzen ari dituen neurri berriak, gu bezalako kaseta ttipiak kasik itoz. Herria

Aldiz ofizialetan egoera **arranguragarriagoa** da. Herria

---

arranguraka *adlag* arranguraz.

", esaten zuen batzuetan Paolak **arranguraka**. Fernando Rey

-Lagundu! Ezin nauk atera -hasi da berriro Koiote **arranguraka**, akabatzen ari diren txerriaren antzera. Patxi Iturritegi

Handik egun asko gabe, gainera, **arranguraka** joan zitzaion dalit bat hil egin zuen. Gotzon Garate

---

arranguran *adlag* arranguraturik.

Ebanjelioan ere agertzen dira bi joera: batetik presa; Jainkoaren erreinua hor da, beraz hortan sar eta hori heda, berehala! Besteetik erakaspen hau: ez beti bizi biharkoaren **arranguran** eta kezkan, egun bakoitzari aski zaio bere zama! Eta munduko lotura tinkoetatik libra izpiritua... Herria

Aspaldiko urtetan, Betarramixtak joan ziren hego Ameriketan bizi ziren euskaldunen **arranguran**, Mixel Garicoitz-ek igorririk. Herria

"Zure lagun horiek ez zaizkit gustatzen! ", esaten zuen Lolak **arranguran**. Fernando Rey

Gutun hori igortzen dizut neure gutunaren zirriborroarekin batera; irakurri eta juja: ikus nolako faltsukeria nabarmenaz erraten didan ez dela amorosturik, alderantziz dela ziur naizen arren; eta **arranguran** datorke halaber baldin gero engainatzen badut, nahiz ez duen ni aldez aurretik engainatzeko beldurrik! Jon Muñoz

-Etiennerengatik eta bertze biengatik **arranguran**? Aingeru Epaltza

---

arranguraño *iz adkor* arrangura xumea.

Nik banuen haatik **arranguraño** bat. Janbattitt Dirassar

Jaz eta horietan, arrakasta handitzearekin preseski, bazen **arranguraño** bat, ainitz jendek filmak ikusi nahi eta denentzat ez tokirik, Rex zinegela ez baita hain handia. Herria

Epaiketa hortaz haatik baginuke **arranguraño** bat: Zanpantzar itsusi horri akusatzaileak mintzatu zaizkio mitin batean izan bagine bezala. Herria

Loriatua, Magali zoin zen xarmanta, eta nonbaitik halere halako **arranguraño** batekin, ez ote nintzen, dena musu eta tinka, sobera ausartatua, presatua, liluratua, ez aski ene buruaren jabe izana. Janbattitt Dirassar

Epaiketa hortaz haatik baginuke **arranguraño** bat: Zanpantzar itsusi horri akusatzaileak mintzatu zaizkio mitin batean izan bagine bezala. Herria

---

arrangurarazi, arranguraraz(i), arrangurarazten du *ad* arranguratzera behartu.

Autobide proiektu handiek, iparraldean bezala, hegoaldean ere jendea **arrangurarazten** dute. Herria

---

arrangurati *izond* arranguratsua.

-Zuhaur hemengo ekonomiaz **arranguratia** zira... laborantxa problemaz, eta holako gauza batzueri interesatzen zira? Menane Oxandabaratz

Ezin jasan ez amaren galdera **arranguratiak** -"eta orain nor arduratzen da zure arropaz? eta nork egiten bazkariak? eta...? "-, ezta izeba neskazaharraren ateraldi pozoitsuak -"utzan, neska, utzan, birigarro honi ez zaion luze joanen errekanbiorik aurkitu gabe"-. Aingeru Epaltza

---

arranguratsu **1** *izond* arranguraz betea.

Okerbidean beharbada, baina Kerrnaren teorien aurkako mesfidantza **arranguratsu** bat erne zen ber-bertatik nire baitan. Juan Garzia

Lasaitu ederra hartu zuen kontu hark zer-nolako ondorioa izan zuen ikusita; neska **arranguratsuarekin** eskuzabal jokatu behar zuen. Mirentxu Larrañaga

Aditzekotan ere, parketaren kexu **arranguratsua**, apaingarrien dar-dar ikaratia, kirrinka-hotsen bat edota parpailaren firfira, eta arropa zuri zurrunaren usain larderiatsua baino ez. Mirentxu Larrañaga

Arazoaldiak aurkitzen ditugu, proletalgo deserrotu eta **arranguratsuak** ez ezik, kolonizazio-enpresak ere eskala handian sortzen dituztenak. Iñaki Mendiguren

Burutik pasatu zitzaion bere lana suntsitu edo eraberritzea; gero, prestutasun **arranguratsuz**, Erromara bidali zuen, hitzik aldatu gabe. Juan Garzia

Carlos Argentinok, miresmen **arranguratsuz**, hizpidera ekarri zuen ez zuela uste huts egiten zuenik sendo epitetoa egozten bazion Alvaro Melián Lafinur-ek zirkulu guztietan bereganatua zuen prestigioari, eta letragizon horrek, nik neure ahalegintxoa eginez gero, pozez xoraturik egingo ziola noski hitzaurrea poemari. Juan Garzia

Gaztaroan M.R.J.C. katoliko mugimenduan egon ondoren, eta Herriaren egoeraz **arranguratsu** izanez, militante aktibo bilakaturik, abertzale munduan murgildua da Gilen. Piarres Aintziart

2 (adizlagun gisa)

Hargatik, osaba kexu eta **arranguratsu** sumatu nuenean, erran nion: [...]. Joan Mari Irigoien

Baina Joxe Aberasturi kexu eta **arranguratsu** agertu zitzaigun ondotik: [...]. Joan Mari Irigoien

Handik aurrera, **arranguratsu** ibili zen, azala are beilegiagoarekin, bere ezkon-neba burutik kendu ezinean, eta bezeroak galtzen eta tratu txarrak egiten hasi zen azkenerako. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kexu eta arranguratsu** (3)

---

arranguratu, arrangura(tu), arranguratzen da/du *ad* zerbaitek edo norbaitek eragiten duen atsekabea edo kezka adierazi. Ik **kezkatu**; **kexatu**.

Ez da nehor **arranguratuko** eskuak odolez beteak zituen diktatore baten lurrerat botatzeaz. Herria

Beti bezala - **arranguratu** zen kaboa. Jon Alonso

Apezpiku euskalduna eskatzeko ausartzia izan zuen laurogei bat laguneko apez taldeaz mintzo ziren arauz! Edo Aljeriako gerla denboran Frantziaren politikaz **arranguratu** ziren apez eta apezgaiez beharbada! Piarres Xarriton

Solasean hasi ziren eta Mirentxu **arranguratu** egin zen, berak etxean seniderik ez zuelako. Gotzon Garate

Buru-buztanik gabeko elezaharrak! - **arranguratu** zitzaion Nora-. Anjel Lertxundi

Horren ondotik, gizon gaztea **arranguratu** egin zitzaion: [...]. Patxi Zubizarreta

-Mesedez, ez nazak Egunkaria-rako elkarrizketatzen nuen jendaila horren maila berean jar - **arranguratu** nintzaion. zure galderak **arranguratu** egiten nau eta hura baieztatzea eragozten dit. Juan Luis Zabala

Gaixotasunaz geroztik hartaz apenas oroitzen bazen ere, desagertzearen albisteak **arranguratu** egin zuen. Patxi Zubizarreta

Hola mutikoak bazekien -eta segur zen- nehor ez zela **arranguratuko**, ez eta ondotik ibiliko, kexaturik, non galdua ote zen. Michel Oronoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arranguratu da** (3); **arranguratu dira** (3); **arranguratu egin** (4); **arranguratu gabe** (3); **arranguratu zen** (9); **arranguratu ziren** (4); **ere arranguratu** (3); **sobera arranguratu** (3)
> **arranguratua zen** (3)
> **zer arranguraturik** (3)
> **arranguratzen dira** (3); **arranguratzen hasi** (3); **arranguratzen zen** (3)

arranguratuxe *adlag* apur bat arranguratua.

Émilie hartaratzea izan nuen zailtasun bakarra, auzapez haren aberastasunak **arranguratuxe** baitzeukan. Jon Muñoz

---

arranguraz *adlag* arranguraturik.

Iñaki Madariaga Errigoitiko alkateak besterik zioen goizean, **arranguraz** Berria - Harian

Kopeta ilundurik, bere baitan **arranguraz** egin zuen: "Zer esango ote du jendeak hemendik aurrera? ". Patxi Zubizarreta

-Zigortuta egon nintzenean Filchek haren ezkutuari berrogeita hamarren bat aldiz distira aterarazi zidalako -erantzun zion Ronek **arranguraz**. Iñaki Mendiguren

Zinkurin egin zuen Willemek, gustuko gaia eten izanaren **arranguraz**. Anjel Lertxundi

-Kezkatuak, beren geroaz **arranguraz** beteak. Jose Angel Irigaray

Eskuara du ama hizkuntza, eta injustizia ororekiko sentiberatasuna bihotzean daraman gizona izaki, herriari dion atxikimenduak eta maitasunak fite eramanen du **arranguraz** bizi duen egoerari engaiamendu pertsonalarekin erantzutera. Filipe Bidart

Hark Tomekin eta Honeyrekin igaro zuen aldian, **arranguraz** izan nintzen, arazoren bat edozein unetan leher zitekeelakoan. Oskar Arana

Oihu orokorra zabaldu zen, izu eta **arrangurazkoa** portugaldarren aldean, deabruen bozkariozkoa harresietako adarbeetan, non moru-jende beltzak palko batetik bezala begiratzen baitzuen. Jon Alonso

-Ia, esnatu, nahizu? -oihu egin zion **arranguraz**. Mirentxu Larrañaga

Zer dela-eta? -**arranguraz** esan zuen, Bartolome Izeta aingeruaren eskua hartzeko astirik eman ez niolako, beharbada. Edorta Jimenez

-Beranduegi ari zara -esan nion bisitariari, **arranguraz**. Edorta Jimenez

Niri dagokidanez, **arranguraz** dut neure zortea onartzen. Juan Garzia

---

arrangurazko *izlag* arrangurari dagokiona.

Oihu orokorra zabaldu zen, izu eta **arrangurazkoa** portugaldarren aldean, deabruen bozkariozkoa harresietako adarbeetan, non moru-jende beltzak palko batetik bezala begiratzen baitzuen. Jon Alonso

Isiltasun eta kontentamendu horietan luze ari dira solasten, **arrangurazko** erauntsietan edota amodioan murgilduz arteka. Jose Angel Irigaray

Hilzorian izan eta bizirik egon nahi duten herrien hitzak dituzte, **arrangurazkoak** anitz, bozkario eta itxaropenezkoak noiz edo noiz. Xabier Montoia

---

arrania *interj* arraioa!

-Arrania ! -esan zuen Roberts jaunak-. **-Arrania** ! -esan zuen Roberts jaunak-. Koro Navarro

· Marrazki bati bizia eman, apota **arrania** ! Anjel Lertxundi

---

arranimatze *iz* berriro animatzea.

Halatan, **arranimatze** -guneetarik jalgitzean etxaldeko sukaldean espantuz ari zen, osasuntsu berriz. Itxaro Borda

---

arranjamendu *iz ipar* arranjatzea, konpontzea, prestatzea.

Orai berriz partitzearekin nahi izan dugu musikaren aldetik **arranjamendu** zenbait ekarri, gomitatu ditugu bi gazte, akordeonista bat eta gitarra apala jotzen duen mutil gazte bat, horiek dira Laurent eta Cédric. Herria

Zergak aipatu baititugu, bi sosentzat zernahi jestu eginen dautzute orobat bainan miliun batentzat "handi" ekarria denak ardietsiko du nolazpait **"arranjamendu"** zerbait! Behar den tokirat pollikiño dei eginik! Herria

Muntadura berririk ez egitea eta orai artinokoak halere kentzea, bidesarientzat beste joko bat pikoan ezarriz, gisa hartako **arranjamendu** zerbait eginik mugaren bi aldetako zerbitzuen artean. Herria

Badut mentura ona **arranjamendu** on bat eginen dela luze gabe Irakiako gobernu berriarekin. Herria

---

arranjatu *du ad batez ere ipar* konpondu, prestatu.

Zientzia barnatuz edo hobetuz ote dira munduko problemak **arranjatuko** ? Menane Oxandabaratz

Zer gerta ere, erakundeari erraztasunak eman nahiz, azken lanaren itzulpena ere prestatzen ari dira, zu lasai, guk **arranjatuko** dugu dena. Jose Angel Irigaray

Urte bat baizik ez zuen, hor plantatua zela Patrick Sallaberry horgo laborari gaztea, etxaldea erosirik eta etxea ederki **arranjaturik**. Herria

Beharrik publiko hori ona baita eta prestua, jokoaren faltan arrailleria batek oro **arranjatzen** ditu, biperrak salda hila bezala. Herria

Geroztik badu zerbait eginik, etxe **arranjatzen** eta apaintzen. Herria

Baina **arranjatua** bainoago arranguratua da. Jose Angel Irigaray

Iduriz **arranjatzekotan** dira. Herria

---

arranjatzale *iz ipar* arranjatzen, konpontzen duena.

Herriko autozaingoan bere aita zenaren segida hartu zuen, denbora hartan arotz eta tresna **arranjatzale** trebea ere zelarik. Herria

---

arranjatze *iz batez ere ipar* konpontzea, prestatzea.

Bizpahiru hilabete iraun behar omen dute kanpoko obra horiek; teilatu **arranjatze** , zur tratatze, ezkilaren dorre erreberritze. Herria

Herriko lur baten **arranjatzeaz** . Herria

---

arrankada *iz* abiatzea, oldarra.

Arrankada gogorrekoa zan. Xabier Amuriza

---

arrankari *iz g.er.* amuarraina.

Bizkaiko inguruetan sartu eta batera **arrankariak**, edo amuarrainak, jauzika igartzen izan ditu, eguzki printzetan eta pasaeran ikusten izan dituzten ibaietako ur-azaletan, jauzika. Edorta Jimenez

---

arrankatu, arranka(tu), arrankatzen du *ad* autoez eta kidekoez mintzatuz, abiarazi, abian jarri.

Komisarioak autora sartu eta irratia piztu zuen **arrankatu** aurretik. Harkaitz Cano

Atea irekitzean eskularruak atera zituen guanteratik, rubio bat piztu, eta azeleradorea indarrez eta azpiraino sakatuz **arrankatu** zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Aitorrek motoa **arrankatu** du. Jokin Muñoz

Demetriok motorra **arrankatu** eta kokotsa goratu du agur egiteko. Pello Lizarralde

Txoferrak mikrofonotik agurtu zituen bidaiariak eta **arrankatu** egin zuen. Iñaki Zabaleta

Dyerrek apuntatu zuen kotxeak **arrankatu** zuenean, eta bat zetorren Brenten izenean emana zen matrikula zenbakiarekin. Xabier Olarra

Bitartean txoferrak autobusa **arrankatu** eta ziztu bizian alde egin din handik. Mikel Hernandez Abaitua

Kontaktuarekin puska batean ri-ra aritu ondoren lortu du azkenik Txetxuk **arrankatzea**. Xabier Mendiguren Elizegi

Neguaren ilunpetan, hezurretaraino sartzen den izotzaren erdian, **arrankatu** ezin duen auto baten karranka errukarria. Pako Aristi

Eta azeleradorea indarrez sakatuz **arrankatzen** du Mikelek. Xabier Mendiguren Elizegi

Azken modeloetako autoek lehenengoan **arrankatzen** dute. Pako Aristi

---

arrankazi *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi) iz* arpoia.

"Ez gabiltza arrantzan; hau **arrankazi** zorrotza da, ekimen terroristaren bihotzera bideratutakoa", esan zien Stuart Levey Altxor Departamenduko idazkariordeak egunkariko buruei ostegunean. ETC-prentsa

Adarrak **arrankaziak** egiteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hezurrezko tresneriak garrantzi handia zuen: azagaiak, hortz ilara bateko edo biko arpoi **arrankaziak**, jostorratzak eta bastoi zulatuak. ETC-entziklopedia

---

arranke *iz* abiatzea, abiaraztea; oldarraldia.

Aukera ona, aixkide: ederra duk kantuaren **arrankea**! Harkaitz Cano

Arrankeak-eta bazituen, baina berehala joaten zitzaion arreta ondoan zuen edozein gauzarekin. Jokin Muñoz

"Uztak neska bakean behingoagatik!, esan zion behin, **arranke** batean. Jokin Muñoz

Edukiko ez zuen, ba, **arrankea** eta korajea! "Beldurra gainetik astindu behar dugu!", esaten zuen bere azken kolaborazioan, ohiko modernokeriekin batera. Jokin Muñoz

Detaile polita! Noizean behin, oso noizean behin, horrelako **arrankeak** izaten ditu Begoñak. Patxi Iturritegi

Irudikatzen al duzue Egaña saio bat hasten, garboso, **arranke** izu-garriz, sinetsita...? Andoni Egaña

Irudikatzen al duzue Egaña saio bat hasten, garboso, **arranke** izu-garriz, sinetsita...? Andoni Egaña

Geure tokitan eserita baldin bagaude, **arrankerik** ez daukagulako; tokiz aldatuz gero, buruarinak garelako. Arantxa Iturbe

Arranke horrekin jokatuz gero ez dut esango gai izango direla Titin eta Goñi etxera bidaltzeko, oso estu hartzeko bai. Berria - Kirola

---

arrankura ik **arrangura**.

---

arrankuragarri ik **arranguragarri**.

---

arrano *(ETCn **3.846** agerraldi)* **1** *iz* hegazti harrapari handia, luma arreak, isats biribila, eta moko eta atzapar sendoak dituena, guztiz gora eta arin hegaldatzen dena, eta bildotsak, azeriak eta kidekoak harrapatzen dituena *(Aquila Chrysaetos)*.

Haren zaldunak lasterka datoz, urrutitik, hegan, **arranoa** harrapakinaren gainera bezala. Elizen arteko biblia

Arranoa bezala datorkio zoritxarra gainera Jaunaren herriari, nire ituna hautsi baitute, nire irakaspenaren aurka jarri baitira. Elizen arteko biblia

Zure aginduz igotzen al da **arranoa** gora eta bere habia gailurretan egiten? Elizen arteko biblia

Arranoa bezala altxatuko bazina ere, habia izarretan egingo bazenu ere, bota egingo zintuzket handik. Elizen arteko biblia

Lehenengoak lehoia zirudien, baina **arranoaren** hegalak zituen. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Austriarren **arrano** inperiala nahi dut zure etxeko armarriaren parean. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan)

Kerubinek launa aurpegi zituzten: lehena zezen-aurpegia zen, bigarrena gizaki-aurpegia, hirugarrena lehoi-aurpegia eta laugarrena **arrano**-aurpegia. Elizen arteko biblia

Baina Jaunarengan itxaron dutenek indarrak berritzen dituzte: **arrano**-hegoak hazten zaizkie, lasterka egin eta ez dira nekatzen, ibili eta ez akitzen. Elizen arteko biblia

Baina bi **arrano**-hego handi eman zizkioten emakumeari hegan basamortura joan zedin, han, sugearengandik urrun, hiru urte eta erdiz bizitzeko prestatua zuen tokira. Elizen arteko biblia

4 (interjekzio gisa)

-Ba bide batez paperik gabeko beste arrain batzuk ere enbarkatzen direla, eta ez edonolakoak, **arranoa**! Ez diot sekretu hori zeure lako ume gorri bati kontatuko, ezta? Edorta Jimenez

Arranoa! *Edorta Jimenez*

-Arranoa, *Uriarte!* Kontaktua egin diagu. Edorta Jimenez

5 ***arrano amerikar*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Sinbolo nazionala da: **arrano amerikarra** (Haliaeetus leucocephalus). ETC-literatura, saiakera

Arrano amerikarra duten urrezko txanponik handienak 28,4 g-ko masa du. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***arrano arrantzale*** *(corpusean ez dago; ETCn **133** agerraldi)*

Arrano arrantzalea ("Pandion haliaetus") erdi-mailako hegazti harraparia da, arrantzan nagusia, bere elikadura arrainetan oinarritzen da eta mundu osoan zehar aurki daiteken espeziea da (Antartikan izan ezik). ETC-entziklopedia

Tranpa hezera... agidanez eta zorigaiztoz, **arrano arrantzaleak** harrapakin handiegia aukeratu du. ETC-literatura, saiakera

Garbiketa orokorra izan zen, ia erabatekoa, ale gutxi batzuk baino ez omen zituzten bizirik utzi, **arrano arrantzaleek** zer jan izan zezaten. ETC-literatura, saiakera

Ehun hegazti espezie baino gehiago pasatzen dira Urdaibaitik, bai Afrikatik Europara, bai Europatik Afrikara: mokozabala, lertxun hauskara, **arrano arrantzalea**, kurlinta, txirria, aliota... ETC-prentsa

Baina, arrantzalerik ederrenetarikoena eta galtzeko arriskuan dagoena **arrano arrantzalea** dugu, migratzailea da eta Europa osoan arriskupean dago. ETC-prentsa

Arrano arrantzalea berreskuratzeko, lehen aldiz hamabi txita ekarri dituzte Eskoziatik Urdaibaira. ETC-prentsa

Eraztuntzeez gainera, badituzte beste zenbait proiektu: **arrano arrantzalearekin**, esaterako. ETC-prentsa

Arrano arrantzaleek eta antzarek hala egiten dute Europa zeharkatzeko bidaietan. ETC-prentsa

7 *arrano beltz*

Izoztutako hazitik munduko lehenengo **arrano beltza** jaio da, Erresuma Batuan. Berria - Gaiak

Nafarroako bandera andana, **arrano beltzekin** eta ikurrinekin batera. Berria - Euskal Herria

Naturzaleek, bai, izan zuten begiak gozatzeko parada: hamaika putre, hurbil-hurbil; belatzak, prismatikoen pare; zikoinak; miru gorriak, nonahi; ubarroi talde bat; **arrano beltzak**, lau; eta ugatza. Berria - Euskal Herria

Arrano Beltzaren irudia berreskuratu zuen Erdi Aroko dokumentuak kontsultatuz eta Iruñeko katedraleko Erdi Aroko bobeden erliebeak behatuz. Berria - Kultura

Hauek ikurrinak, **arrano beltzak** -eta erakusten zitiztean, Zorionak Ina zioen pankartari betiko lagunek eusten ziotean-eta, aurreneko argazki haietan behinik behin. Jokin Muñoz

Ez enarak, baizik **arrano beltzak**, zenbat amonatxo, aita, seme-alaba edo haurride eraman ote ditu odolez betetako bere atzapar zikinen artean? Pello Salaburu

Bihotzaren nahia hartara bihurtuz gero, uso zuri edo **arrano beltz** izan daiteke; zaldi zuri edo zezen beltz izan daiteke; zuhaitz gorri edo zuhaitz beltz izan daiteke; gereziondo edo gerezi izan daiteke. Felipe Juaristi

Han, 728 haize-lapur omen dituzten parajeotan, azken urtean, 33 hegazti handi akabatu dira: 30 sai edo putre, arrano txiki bat, arrano sugezale bat eta **arrano beltz** eder bat. Pello Zabala

8 *arrano buruzuri* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Munduan zehar 60 arrano mota baino gehiago daude. **Arrano buruzuria** da haien artean famatuena. ETC-entziklopedia

Arrano buruzuri bat, EEBBetako ikurreko hegaztia, pareko mendietako basoetarantz igaro da, hegaz aise eta indartsu, kai osoa gainetik zeharkatuz. ETC-prentsa

Ameriketako **arrano buruzuriaz** hitz egiten digu Now izeneko lehen lan luzearen esku-programak. ETC-prentsa

Eta egia da iritsi eta TTIP hitzarmen komertziala bertan behera utzi zuela, hainbat gerratetatik atera zituela (metafora batekin esatearren) **arrano buruzuriaren** atzaparrak. ETC-prentsa

Urteak herdoiltzen eman ostean, ordea, **arrano buruzuria** eskualdera itzuli dela dirudi: kapital amerikarra eraikin zaharra zelatatzen hasia da. ETC-prentsa

9 *arrano nagi* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arrano nagi, "Aquila rapax". ETC-entziklopedia

10 *arrano pikart* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arrano pikarta ("Aquila clanga") accipitridae azpifamiliako hegazti harraparia da. ETC-entziklopedia

11 *arrano pomeniar* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Zein txori ikusi nahiko zenuke? **Arrano pomeniar** bat ongi ikusi nahiko nuke. ETC-prentsa

12 *arrano sugezale*

30 sai edo putre, arrano txiki bat, arrano **sugezale** bat eta arrano beltz eder bat. Pello Zabala

13 *arrano txiki*

Han, 728 haize-lapur omen dituzten parajeotan, azken urtean, 33 hegazti handi akabatu dira: 30 sai edo putre **arrano txiki** bat, arrano sugezale bat eta arrano beltz eder bat (Ik. Gara, 2000-08-27, 22.or.). Pello Zabala

14 *buru biko arrano*

Beste edozer baino sarriago, bazter guztietan ageri ziren, belzturik, **buru biko arranoak**, Estatuaren ikurra. Jose Morales

15 *eguzki-arrano* *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)*

Eguzki-arranoa ("Aquila heliaca") Accipitridae azpifamiliako hegazti harraparia da. ETC-entziklopedia

Kardantxiloarena egiten dakit, Gabongo sugegorriarena, zeinari latinez esaten baitzaio Bitis gabonica, hontzarena, zeinak burua 360 gradu jiratu baitezake, **eguzki arranoarena** ... ETC-literatura, saiakera

Galtzeko zoria dauden animalia mota ugariren Europako azken babeslekua ere bada: otsoa, katamotza, hartz nabarra, Europako bisontea edo **eguzki-arranoa**, kasu. ETC-prentsa

Katamotza, **eguzki-arranoa** galtzear egon dira Iberiar Penintsulan. ETC-prentsa

Zuhaitzen adaburu tantaiak, adibidez, hegazti espezie garrantzitsuen - **eguzki arrano**, sai beltza, arrano txiki edo arrano sugezaleen- habialeku segurua dira. ETC-prentsa

Hirugarren Reich-aren aldeko txapel bat darama buruan, **eguzki arranoa** protagonista delarik. ETC-prentsa

Joanek, ostera, Jainkotasunaren gorenetara hegan egiten duenak, **eguzki-arranoa** deritzo. ETC-literatura, saiakera

16 *estepako arrano* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Kazakhstango bandera 1992ko ekainaren 4an erabakitakoa da. Urdin zerutar koloreko hondoa du eta erdian aquila nipalensis **estepako arrano** bat eta 32 izpi igortzen dituen eguzki bat ditu, biak ere urre kolorekoak. ETC-entziklopedia

17 *itsas arrano*

Hegaztien kaiolan txori bakar bat dago, **itsas arrano** gazte bat, hegal hautsia ohol batekin lotua daukana. Oskar Arana

Hegaztien artean hauek dituzue debekatuak eta ezin izanen dituzue jan: arranoa, gabiraia, **itsas arranoa**. Elizen arteko biblia

Itsas arrano buztangorria: Zerrenda gorriak eta kontserbaziorako ahaleginek egoera aldatzeko ahalmena badutela erakusteko froga da, IUCN taldeak dioenez. Berria - Gaiak

18 *itsas arrano buztanzuri* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Parke nazionalean habiaratzen duten hegaztien artean, aipatzekoak dira besteak beste, basoilarrak, Portinkuru eta Vattukuru euri-bideak gogoko dituzten belatz txikiak, ipar kaskabeltzak, **itsas arrano buztanzuriak**, okil beltzak, siberiar eskinosoak eta txio lepazuriak. ETC-entziklopedia

---

arranokume *iz* arranoaren kumea.

Naturak izugarrizko egiten duen gauza orotan bezala, zoko zoragarriak daude, larreak, erreka nagusitik bananduta arranoaren habian **arranokumeek** eduki behar duten txorrotxio eztiaz xuxurlatzen duten xirripak, lorez eta lurrinez beteriko belazeak, mila pausaleku bistaren eta gogoaren atseginerako. Koldo Izagirre

Autoak aurrera jarraitu zuen, kaiolatik atea puskaturik irtenda zerura libre altxatzen den **arranokumea** balitz bezala. Aitor Arana

---

arranopola *interj* arraioa!-ren leungarria.

- **Arranopola**, azkar ibili dira gero! Lopez de Arana

Honela esan zuen pixka batean hausnartu ondoren: **"Arranopola**!, irauli ez da, ba!". Jose Morales

-Arranopola! -oihukatu du, gero eta amorratuago, Axenariok-, oraindik ez dago hilda! Itziar Otegi

Olerki ederra, **arranopola**! Lopez de Arana

-Hau bai ederra, **arranopola**! -esan zuen Jimmy Herfek edontzi bat Bourbon eskuetan zuela, aulki espainiar baten bizkar garaiaren gainean erdi etzanda, intxaurki beltzezko

bibliotekan. Lopez de Arana

-Jackstones direlakoak zer diren ez jakitea ere, **arranopola** ! Lopez de Arana

· **-Arrano** -pola, Blount maite hori! -oihu egin zuen Alcide Jolivetek-, zuri horixe galdetzekotan nengoen! Karlos Zabala

---

arranotan *interj* harridura, haserrea eta kidekoak adierazteko hitza. ik **arraio**.

Eta horretan nengoela, **arranotan** !, nor eta aita ikusi nuen, Jainkoak izan dezala berekin! Patxi Iturritegi

Arranotan ! Berba egiten hasi aurretik banekien ama zela, nor bestela? Bere onetik aterata zirudien gainera. Patxi Iturritegi

---

arranotegi *iz* arranoak dauden tokia.

Eta laster, Cluny-ko abade handia, Odilon, kümitatürik, Leire-ko **arranotegi** sakratütik erreforma hegaltarazi züan Santiago-ko bidealat. Herria

---

arranotzar *iz adkor* arrano handia.

Arranotzar arek bere odol ta atsa barratu zizkian nun nai; ez ordea gureakin naasi; ez karraka latzik gure poxpoliñak aintzat artu. Patziku Perurena

Zapaldu zuten sega beltz edo / **arranotzarran** eguak, / oraiñ ordañak emango dizka / aingeruarekin Zeruak. Askoren artean

---

arranozale *izond* arranoen zale dena.

Ni, egia esan, ez naiz ez **arranozale** ez usozale, baina mezua ondo ulertu badut, biodibertsitatea omen da kontua, ala? Joxerra Garzia

Arranozale batek egokiro azaldu zuenez, egoerari dagoen-dagoenean eustera mugatuz gero, 200 urte baino lehen galduko omen litzateke espeziea. Joxerra Garzia

---

arranpa *iz* gihar uzkurtze mingarria. ik **karranpa**.

Eta batek amor eman damurik, hura Berasategui, zangoko **arranpekin** . Herria

Arranpa leun bat, besoetan eta hanketan bereziki. Iban Zaldua

Arranpa izugarriek heltzen naute lumari eusten diodanean. Joxan Elosegi

Ez dakit zer gertatu zen, kanpoan egotearen emozioa agian, edo mantenuko gizonaren galtzea orduan, baina **arranpa** izugarri batzuek eraso zidaten kalearen erdian. Joxan Elosegi

Forma zuria ukitzean, zerbait berezia sentitu nuen, **arranpa** antzeko bat. Aritz Gorrotxategi

Harrezkero, oinazea, **arranpa** moduko bat, sentitu nuen etengabe aldaketan, eta nekez lortzen nuen zutik eta tente jartzen. Joxan Elosegi

Egun xoragarri bat izan da gehientsuenentzat segurik, heltzean pintza, **arranpa** eta aztal gogor frangoren zinkurinak entzun balin badira ere. Herria

---

arranpala *iz* eskaileratxoa.

Gero, kamionetako atzeko atea zabaldu, zurezko **arranpala** ipini, eta barrura sartzen saiatu da isatsetik gogor tiratuz. Patxi Iturritegi

Apenas antzematen nion **arranpalaren** heldulekuari. Monika Etxebarria

---

arranpalo 1 *adlag* begiez mintzatuz, irtenak-edo daudela.

Begiak **arranpalo** gelditu da pastoralgilea, ez baitu ulertzen zer egiten duen turko batek Muskildin, pastoralenganako jakin-minik ez badu. Anjel Lertxundi

Koleraz beterik, begiak **arranpalo** jarri zitzaizkion. Patxi Zubizarreta

Begiak **arranpalo** jarri zitzaizkidan, ez nuen espero halako lotsagabekeriarik. Karlos Linazasoro

Begiak **arranpalo** gelditu nintzen harrerako arduraduna Klaus zela ikusita. Anjel Lertxundi

Emakumearen begiak **arranpalo** jarri ziren eta hutsagatik ez zitzaion ostikoka hasi. Patxi Zubizarreta

Nolatan bahituko nuke nik gobernadorearen alaba? -esan zuen Txitxikovek, begiak **arranpalo** . Jose Morales

Uilek ere begiratu zion, begiak **arranpalo** , keinurik egin gabe. Juan Kruz Igerabide

Haien begiak, **arranpalo** ; ahoak, zabalik; ileak, lazturik. Anjel Lertxundi

Osaba Tomen etxeko buzoia ixtear nintzela, begiak **arranpalo** geratu naiz gure ondoko buzoiko plakan izkiriaturik zegoen izenari begira. Harkaitz Cano

Mateoren ardandegiaren parera iritsitakoan baretu zen Joanes, indar tantaka, hanka puntetan ia hurbildu baitzen kanpoko ateraino, eta hatz dardaratiez urrezko lehoiaren irudi lodia ukitu zuen, eta kanpotik barrukoa zelatatzen hasi zen begiak **arranpalo** . Felipe Juaristi

"Zer?" zabaldu zituen begiak, **arranpalo** . Juan Kruz Igerabide

2 (izenondo gisa)

Belztasunak lagunduko zidan zereginean eta aitonaren begi **arranpaloak** ahanzten. Karlos Linazasoro

Haren begi **arranpaloak** , betaurreko distiratsuen atzean igerian. Alberto Ladron Arana

Um Hamidak begi **arranpaloekin** ikusi zituen alargunaren aldaketak. Patxi Zubizarreta

Rubenek begi **arranpaloekin** begiratu dio eta ni Karmelo ere ahoa bete hortz zegoela ohartu naiz. Patxi Zubizarreta

Bihozkada baten eraginez, haraino tarrapataka jaitsi, eta begi **arranpaloez** ziurtatu nuen autoa gurasoena zela. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begiak arranpalo gelditu** (5); **begiak arranpalo jarri** (3)
> **begi arranpaloak** (4)
> **arranpaloekin begiratu zion** (4); **arranpaloekin ikusi zuten** (3); **begi arranpaloekin begiratu** (7); **begi arranpaloekin ikusi** (7)

---

arranparrila ik **arranparrilla**.

---

arranparrilla *(corpusean **arranparrila** soilik, ETCn **64** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **arranparrilla** agertzen da, ETCn **2** agerraldi) iz* paraleloki ezarritako burdin hariz osaturiko tresna giderduna, janariak surtan prestatzeko erabiltzen dena. ik **grisela**; **parrilla**.

Bere larri hartan, hantxe zegoen, bada, arima eztitu ezinik eta **arranparrila** batean eseria balego bezalaxe, lepoa jiratzearen jiratzeaz tortikolisa harrapatzeko zorian. egospenak tenperatura biziegietan egin gabe luzatu egiten badira, ondorio mesedegarriagoak lor daitezke (**arranparrilan** erretako txitxarroari baratxuri kiskalia erantsi ordez, horiago gehitzea, adibidez). Patxi Zubizarreta

Sutegia hotz zegoen, saltxitxa zanpatu bat besterik ez zen ageri, **arranparrilaren** gainean ahaztua. Karlos Zabala

---

arranpatu *adlag* arranpak joa.

Bion artean arrastaka eraman hindugun bebarruko itzalpera, ordurako tenk-tenk eginda, **arranpatua**, beldurrak jota hiltzen direnak hiltzen diren bezala. Juan Garzia

Bizia tragikoa zen: obsesionez erabat **arranpatua**. Itxaro Borda

---

arrantxero *iz* arrantxo batean lan egiten duen pertsona.

Arrantxeroa zen, zalantza barik, Cienfuegosen istorioak ongien konprenitzen zituena baso-mutiletan. Koldo Izagirre

Nik hemen egon behar nian, ni neure lekuan nengoen, ni gertu nengoen emon behar nian seinalea emoteko, sakelan zaukaat zapi gorria, zer arraio jazo ote duk, **arrantxero** alu hau beldurtu egingo zuan! Koldo Izagirre

"Gregoriyo hori, **arrantxero** izateko bakarrik balio zuena, nire enamoratuaren aita omen zen", azaldu zidan. Bernardo Atxaga

---

arrantxo[1] *iz* pertsona talde handi batentzat prestatzen den oturuntza.

Frontean egindako laurogeita hemezortzi egun doiek nekez eman dezakete jaten zenuten **arrantxoaz** hitz egiteko baino aukera askoz ere gehiago, pentsatzen nuen nik. Anjel Lertxundi

Arrastorik ere geratzen ez den **arrantxo** batzuk zeuden parajean. Juan Garzia

---

arrantxo[2] *iz* haztegia.

Orain, beherago, gari eta alpapa sailetara hurbiltzen gara -etxaldeak, **arrantxoak**, larre emankorrak ditugu begien aurrean-, baina oraindik ere, larizio gorrixka ere bada nonahi. Xabier Olarra

Hurrengo goizean goiz, larunbatarekin, bere 4x4an hartu ninduen Templek; abeletxeak, **arrantxoak**, eskortak eta haragi-zatiketako lantegiak bisitatzeko erabiltzen duen ibilgailu zurratu bat da. Xabier Olarra

Franz eta ni jateko zerbait berotzen ari ginela etxola erdi erori bateko hondakinen artean egindako sutan, bala galdu batek, prestatzen ari ginen **arrantxoaren** keak erakarrita seguru asko, gure ondoan zegoen gazte bat hil zuen. Anjel Lertxundi

Geroago, **arrantxoan** batetik bestera jarraitzen genuen bitartean, ohartarazi zidan Benettek sindromearen kanpoaldeko agerkari batzuk besterik ez nituela ikusi, eta ez zirela haiek, nahiz eta tarteka benetan tankera bitxia izan, sortzen zizkion arazorik larrienak. Xabier Olarra

---

arrantxu ik **arrantxo**[1].

---

arrantza[1] *(orobat **arraintza** g.er.)* **1** *iz* arrainak harrapatzeko jarduna eta lanbidea. ik **arrantzu**.

Arrantza da ekonomia jarduera nagusia, bakailao eta izokinarena bereziki. Bernardo Atxaga

Arrantza on izan eta beste bat arte -abiatu zen motozikletarantz. Migel Angel Mintegi

Maite nian bereziki **arrantza** egitea Lekeitioko errekan eta itsasoan. Menane Oxandabaratz

-Zer, **arrantza** egiteko modu berria probatzen? -astindu txiki bat eman zion. Migel Angel Mintegi

Ur gezatako arrainaren enkantearen aurreko aldetik berriz pasatzean, salmenta hori behera zetorrela esan zion, bai eta Frantzian ibaiko **arrantza** arrisku handian zegoela ere. Karlos Zabala

Udaberriro joaten dira **arrantzan** egitera, eta baita uda hasieran ere, ahaideak bisitan etorri eta traba egiten hasi baino lehen. Koro Navarro

Aita isileko **arrantzan** edo ehizan aritutakoa zen inoiz, eta Charliek bazekien zer-nola moldatu. Mirentxu Larrañaga

Alargunduko bahintz agian (gerta litekeena noski) eta kargu bidez beste hobe bat hartzeko bahengo, ez ezak gero "ez baina bai" horietakorik edota **arrantzarako** kanabera eta amu izango zaianik inolaz hartu. Patxi Ezkiaga

Coruñako gizonek **arrantzako** txalupetan itsasoko zereginetarako prestatzen ziharduten. Edorta Jimenez

Oso inguru ederra zen, eta lagunak sarritan hurbiltzen ginen inguru haietara, garagardo batzuk erosi eta, uda bazen, lakuan igeri egitera, negu sasoian, berriz, **arrantzara**, baina beti usnan, nor noiz gurutzatuko bere gustuko neskarekin. Anjel Lertxundi

Goizean, esnatu bezain laster, tea edan, eta hortxe daukat zain administratzailea; **arrantzara** joan, eta konturatzerako bazkaltzeko ordua da. Jose Morales

Arrantzara atera ginenean bare-bare zegoen dena. Bernardo Atxaga

Batzuek akuilu luzeak zeramatzaten muturrean labanak lotuta; beste batzuek berriz, **arrantzarako** arpoi txikiak, edota amu lodiak kizki moduan. Joanes Urkixo

Padre aitzur txikiarekin lurra iraultzen ari zen erreka inguruetan, **arrantzarako** zizareen bila. Jon Maia

Arrantzarako pita, amu, kanabera luzagarri eta bestelakoak autoaren atzealdean sartu eta irratia piztu dut, malekoira bidean. Harkaitz Cano

Kea baino zaharragoak ziren **arrantzarako** arropek baldar itxura ematen zioten gizon txaparroari. Migel Angel Mintegi

Gau ezin hobea aukeratu genuen isileko **arrantzarako**, haize-boladarik batere gabea, eta beraz, aise adi genezakeen edonor bazetorren. Mirentxu Larrañaga

2 (izenondoekin)

Itsasaldi harroa den guztietan izaten da **arrantza** ona, une egokietan, saiatzeko kemena izanez gero. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

Denbora hori igaro ostean gure mantenuaren ardura Euzkadiko **Arrantza** Zuzendaritzak hartu izan du. Edorta Jimenez

Abuztuko lehenengoetan Industria kontseilari Santiago Aznar jauna eta horren mendeko **Arrantza** Saileko zuzendari nagusi Tomas Garcia jauna Euzkadiko arrantzontzietako marinelengana etorri ziren. Edorta Jimenez

Beti hor ibili behar izaten dugu beste herrietako jendearekin tratuetan, dela **arrantza** tresnak, edo ardientzako zintzarriak, edo aizkorak eskuratu nahi baditugu. Joanes Urkixo

Komun baterako trepeta arruntez gainera, kanabera bat eta **arrantza** -otarre bat, aldizkariak, bizikleta baten gurpila, botilak eta orain gogoratzen ez ditudan beste lanabes asko zeuden bertan. Anjel Lertxundi

Aitak **arrantza** -hari bat prestatu zuen: adar bat hartu, haria lotu, amu gisa orratz okertu bat erantsi, eta ogi zati bat ipini zion beita gisa. Juan Kruz Igerabide

Sedazko hari bat lortzen omen dute, lodi eta zarpaila, hauskaitz gogorra, eta **arrantza** -haritzat erabiltzen dute. Juan Garzia

Gauza guztiak atzeko eserlekuan utzi eta bolantea probatzen ari nintzen aita itzuli zenean, **arrantza** kapela jantzita eta pastel puska bat bi eskuekin janez. Koro Navarro

Arrantza -ontzien tona kopurua, 5000koa baitzen 1869an, 18.000ra igo zen hogei urtean. Monika Etxebarria

Venezuelako **Arrantza** Flota sortzea interesgarria zen armadoreendako, koipea aterako zioten gure exilioari. Koldo Izagirre

Geroztikako zabarkeria urbanistikoek bizitegi jatorraren eredu bihurtu duten arrantzale txiroen auzune hartan bertan, **arrantza** -eskola politeknikoaren gibelean dagoen txoko polit batean. Koldo Izagirre

Eta enetako Euskal Herria salbatzeko edo gizarte osoa eraikitzeko, laborari mundua, ofiziale mundua, **arrantza** mundua, ekonomia mundua gogoan izan behar dugu. Menane Oxandabaratz

Ohiko **arrantza** lekuak askoz ere urrutiago daude, hegoalderantz. Koro Navarro

Ene etxean bizi zen eta itxasoan zen **arrantza** lanetan. Menane Oxandabaratz

4 *aisialdiko arrantza* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Izatek uste du batez ere **aisialdiko arrantzagatik** hil nahi dituztela hegaztiak. ETC-prentsa

Aisialdiko arrantza edo kirol arrantza plazeragatik edo lehiaketa modura egiten den arrantza da. ETC-entziklopedia

5 *alturako arrantza*

Espainiako Gobernuak Gipuzkoan duen ordezkaritzak atzo jakinarazi zuenez, diruaren truke, behatzaileak tratu berezia ematen zien **alturako arrantzan** lan egiten duten zortzi ontzi jabeei. Berria - Euskal Herria

6 *arrantza apeu* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arrantza apeua arrantza artifizialeko amu mota bat da, arrainaren arreta erakartzeko diseinatua. ETC-entziklopedia

Euli artifiziala edo arrantzarako eulia **arrantza-apeu** mota bat da, normalean euli-arrantza kirolean erabiltzen dena (nahiz eta beste kanaberarekiko arrantza modu batzuetan ere erabil daitekeen). ETC-entziklopedia

7 *arrantza egin*[1]

Arrantza egiten dugularik, sarearen hutsarteak nolakoak, eta halako tamainako piezak harrapa ditzakegu. Juan Garzia

Aranzadi zientzia elkarteak Gipuzkoan egindako aurkikuntza berriek erakusten dute 8.000 urte Euskal Herrian **arrantza egiten** zela. Iñigo Aranbarri

-Zer, **arrantza egiteko** modu berria probatzen? -astindu txiki bat eman zion. Migel Angel Mintegi

Handik abiatuta gehienez ere Hendaiaraino iritsiko da bere ibileretan, baina gutxitan gainditukо du Higer lurmuturra, uretako **arrantza egiteko** ez bada. Migel Angel Mintegi

Itsaso ekaiztsua da gaixoaldia, idatziko du azkenik; baina ekaitzik ez dagoen bitartean **arrantza egin** beharra dauka arrantzaleak, beldurra alde batera utzita. Imanol Zurutuza

Edo, pertikan eserita, inausteko artaziekin **arrantza egiten** du altzoan azpil baten antzera daukan angurri erdi batetik. Koldo Biguri

Arrantza egitea gustatzen zait. Berria - Kirola

%85eko murrizketarekin egoera dramatikoa bihurtuko da, ez baitakigu nora joan **arrantza egitera**. Berria - Ekonomia

Erditik behera leizean gorderik edukitzen du gorputza, baina buruak kanpoan dauzka, eta haiekin **arrantza egiten** du: izurde, itsas zakur, munstro, edo handik igarotzera ausartzen den edozein gizaki. Juan Kruz Igerabide

Luma eta haritxoekin haien itxura ahalik eta handieneko garnatak egiten saiatzen dira **arrantza egiteko** asmoz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arrantza egin nahi duzu? Koro Navarro

Sartalderantz errekasto bat bada, nik eskuz **arrantza egiteko** egokia. Juan Garzia

Bazekien mailuz **arrantza egiten**, errekaren behealdeko harri zapal batzuk jo eta gero altxatzea besterik ez den prozedura. Koro Navarro

Maite nian bereziki **arrantza egitea** Lekeitioko errekan eta itsasoan. Menane Oxandabaratz

Aitak bazekien beste leizeetan jendeak **arrantza egiten** zuela, baina ez zuen ezer esaten. Juan Kruz Igerabide

8 *arrantza egin*[2]

Ez zaitut nekatu nahi fakultatekoek oparitu dizkidaten astalarrosekin: astoa nabarmenago salatzen du arrantza bakar batek, **arrantza egiterakoan** ikusten zaion hortzeriak baino. Anjel Lertxundi

9 *arrantza ontzi* ik **arrantzontzi**.

10 ***arrantzan*** *adlag* arrantzatzen.

-Arrantzan dakiena arrantzalea duk. Iñaki Arranz

Gizonak ikusten ditut han, **arrantzan**. Koro Navarro

Bera, Gordon Johnson, Mel Dorn eta Vern Willimas, pokerrean, bola jokoan, **arrantzan** aritzen dira. Koro Navarro

Arrantzan dakiena arrantzalea duk. Joan Mari Irigoien

Ez al zenidaten esan errekan aritu zinetela **arrantzan**? Mirentxu Larrañaga

Guk **arrantzan** jardun izan dugu, arerioen ontziek egiten izan dituzten pirata-ekintzen arrisku eta guzti -diote-, gogoan izan bestela 1936ko udagoienean haiek gure lau ontzi harrapatu zituztela, eta berrogeita hamabi gizon eroan zituztela. Edorta Jimenez

Ontzi hartan ibiltzen ginen **arrantzan** Moskoeren atzealdeko uharteetan, Vurrgh-tik gertu. Koro Navarro

Arrantzan ibiliak ginen errekan, amuarrain marroiak harrapatzen. Mirentxu Larrañaga

Arrantzan hasten badira ez zietek filiñoei baino are zekenago ordainduko? Koldo Izagirre

Paraje aparta zen **arrantzan** eta bainuan aritzeko. Koldo Izagirre

Jakin ezak, bertzalde, zaldiak irrintzi egiten duela, eta astoak **arrantza**, eta ez dagoela alde handirik irrintzitik **arrantzarat**. Joan Mari Irigoien

11 *irud/hed*

Anshel babarrun **arrantzan** hasi zen zopan, harrapatu zuen bat, erortzen utzi zuen gero. Koro Navarro

Behin ere ez da arituko Donostian gona-**arrantzan**, ezta inguruetan ere, horretan oso zuhurra da. Migel Angel Mintegi

12 ***arrantzan aritu***

Errekaz beherantz jo nuen lasterka eta zuhaizpean egon nintzen zain, elkarrekin **arrantzan aritu** ohi ginen leku berean. Mirentxu Larrañaga

Bera, Gordon Johnson, Mel Dorn eta Vern Willimas, pokerrean, bola jokoan, **arrantzan aritzen** dira. Koro Navarro

Hala, **arrantzan ari** nintzela pasatu zunan beltz bat nire aurrean flotatzen. Anton Garikano

Gabarra batean hiru gizaseme ageri, zirudienez **arrantzan ari**. Txillardegi

Gizonezko bat hil da Lazkaon, **arrantzan ari** zela lau metroko zubi batetik erorita. Berria - Euskal Herria

Arrantzaren alorrean, atzerriko ontziek Mendebaldeko Saharan **arrantzan aritzea** ez da espreski nazioarteko legeriaren aurkakotzat jo. Berria - Mundua

Azken urteotan, bestalde, arraste **arrantzan aritzeko** beste sistema bat zabaldu da. Berria - Gaiak

"Bi neska gazte errekan **arrantzan ari** zirela, mutil bat etorri zitzaien seduzitzeko asmotan. Pablo Sastre

Eta gero, barku batek jo zuen bera zihoana, Bretainiako kostalde horretan **arrantzan ari** zirela. Bernardo Atxaga

Paper artean **arrantzan ari** naiz, esku-arrantzan. Jokin Urain

-Lehengo arrats batean, gaua baino ordubete lehenago edo, **arrantzan ari** nintzen aintziraren ertzean -esango luke lurralde bakartiren batetik etorritakoak begiak larrituz. Bernardo Atxaga

Batzuetan **arrantzan aritzen** ziren, pita amuarekin luzatu eta han egoten ziren, aitaren ofizioa ikasten eta aitaitarena. Joseba Sarrionandia

13 ***arrantzan egin***

Udaberriro joaten dira **arrantzan egitera**, eta baita uda hasieran ere, ahaideak bisitan etorri eta traba egiten hasi baino lehen. Koro Navarro

Hartara, ehizan edo **arrantzan egin** ahal izango zuen. Mirentxu Larrañaga

Eta kontseilariak hantxe esan zuen ontzi denak Frantziara joanaraztekoak zirela, han aterpeturiko euskoentzat **arrantzan egiteko** helburuaz, eta behin Frantzian besoak zabalik hartuko gintuztela. Edorta Jimenez

Lana beltz egin zen, baina, teletipoa berridazten, bezperan, bertsio digitalean, honela eman baitzen: "Duela 8.000 urte euskal herritarrek **arrantzan egiten** zuten, Aranzadiren arabera". Iñigo Aranbarri

Azken urteetan **arrantzan egindako** aurrerapausoak direla eta, espezie gutxik egiten dute ihes sareetatik. Berria - Gaiak

Indonesian **arrantzan egin** eta arraina hango portuetan saldu. Berria - Ekonomia

Gizon batek **arrantzan egin** dezake errege batetik jan duen harrarekin,. Juan Garzia

Suhiak urtero aintziretara eramaten zituen eta **arrantzan egiten** zuten. Irene Aldasoro

14 *arrantzan ibili*

Eusko Jaurlaritzak bazekien legez kanpoko **arrantzan zebiltzala** . Berria - Ekonomia

Ustez, ez legezko etorkinak ziren txinatarrak eta **arrantzan zebiltzala** itota hil ziren. Berria - Mundua

Hildako bat aurkitu zuen atzo Matxitxako (Bizkaia) parean **arrantzan zebilen** itsasontzi batek. Berria - Euskal Herria

Arrantzan ibiliak ginen errekan, amuarrain marroiak harrapatzen. Mirentxu Larrañaga

Ez haute mobilizatuko **arrantzan habilela** , sektore estrategikoa diagu. Koldo Izagirre

-Itota aurkitu zuen **arrantzan zebilen** batek. Migel Angel Mintegi

Hala esaten dute behintzat hango bazterretan **arrantzan ibiltzen** direnek... Paddy Rekalde

Eta gero **arrantzan ibiltzen** dira batzu. Menane Oxandabaratz

15 *arrantzan jardun*

Guk **arrantzan jardun** izan dugu, arerioen ontziek egiten izan dituzten pirata-ekintzen arrisku eta guzti -diote-, gogoan izan bestela 1936ko udagoienean haiek gure lau ontzi harrapatu zituztela. Edorta Jimenez

Bela egiten du bi semeekin, **arrantzan jarduten** dute, ibilaldi luzeak egiten dituzte elkarrekin... Marisa Madieri bizi zela, Carso izeneko eskualde harritsuan egiten zituzten gauza berberak. Anjel Lertxundi

21 metroko zabalera eta sei metroko zabalerarekin, berdel eta hegaluzearen kazako **arrantzan jardungo** da. Berria - Ekonomia

Bela egiten du bi semeekin, **arrantzan jarduten** dute, ibilaldi luzeak egiten dituzte elkarrekin gauza berak egiten zituzten Marisa Madieri bizi zenean ere, Carso izeneko lurralde harritsuanÐ. Berria - Kultura

16 *arrantzarako euli* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Euli artfiziala edo **arrantzarako eulia** arrantza-apeu mota bat da, normalean euli-arrantza kirolean erabiltzen dena (nahiz eta beste kanaberarekiko arrantza modu batzuetan ere erabil daitekeen). ETC-entziklopedia

Beaver River ibaiaren inguruan, edo dozena erdi bat amuarrain harrapatzen laguntzen zien, Treadwayk estalpean, horman iltzatutako artile zerrenda batean bakoitza bere txartelarekin uzten zizkien **arrantzarako euliak** erabiliz. ETC-literatura, saiakera

17 *arraste arrantza iz* sareak herrestan eramanez egiten den arrantza.

Akordioak dio frantziarrek martxoaren 20tik ekainaren 1era debekatuta daukatela arrantza egitea, baina, Tejedorren arabera, epe horretan eta igandeetan antxoa harrapatzen aritu dira **arraste-arrantza** pelagikoekin. Berria - Ekonomia

Kutsaduraren eta **arraste-arrantzaren** erruz, arrain espezie asko betiko galdu direla esan zuen NBEko idazkari nagusiak. Berria - Gaiak

18 *balea arrantza*

Haren esanetan, euskaldunak sarri joan ohi ziren Ameriketako ipar-ekialdera XVI-XVII. mende bitartean, bai bakailao eta **balea arrantzara** eta baita salerosketak egitera ere. Koldo Zuazo

Balea ihizinberaz, eta ez **balea arrantzan** , frangotan erraiten den bezala. Herria

Politika aldatu ezean, Japoniak **Balea Arrantzarako** Nazioarteko Batzordea utzi egingo du 2006an. Berria - Gaiak

19 *baxurako arrantza*

"Frantsesek helikopteroak zauzkatek, gu non gabiltzan jakiteko bakarrik behar ote ditiztek?" eginen zuen marmar Atanasiok, **baxurako arrantzan** aritzen zen hura tarteka. Koldo Izagirre

20 *gehiegizko arrantza*

" **Gehiegizko arrantzaren** aurkako» neurriak hartu ezean 15 urte barru ez dela bakailaorik geratuko ohartarazi du Naturarentzako Mundu Fondoak (WWF). Berria - Gaiak

Munduko itsaso eta ozeanoen egoera larria dela ohartarazi du Nazio Batuen Erakundeak, eta horren eragileak, hein handi batean, kutsadura, **gehiegizko arrantza** eta arraste-arrantza direla zehaztu du . Berria - Gaiak

21 *itsas arrantza*

Iazko irailaren 21ean Eusko Jaurlaritzako Arrantza sailak Mauritaniarekin lortutako akordioari iragan azaroan eskumen errekurtsoa arkeztu zion Espainiako Gobernuak "akordioak nazioarteko harremanetarako Estatuaren eskumen esklusiboa urratzen» zuelako eta " **itsas arrantzako** gaian Estatuaren eskumen esklusiboa urratzen» zuelako. Berria - Ekonomia

22 *itsas bazterreko arrantza* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Itsas bazterreko arrantzan aritzeko eginak ziren eta ez ozeanoz haraindiko bidaiak burutzeko. ETC-prentsa

Gainera, hainbat arazo ekologiko aurkitzen dira tartean, eta, batez ere, **itsas bazterreko arrantzari** eragiten diote. ETC-prentsa

Arrantzaleen ontzi txiki bat da, hiru arraunlarientzat egina, **itsas bazterreko arrantzarentzat** eraikia. ETC-prentsa

Itsas bazterreko arrantzarako dira denak, kaitik sartu-irten azkarrak egiteko. ETC-prentsa

Gainontzeko portutxoak itsas bazterreko arrantzara emanak jarraitu zuten. ETC-zientzia, zuzenbidea

Argi dagoena zera da, Kantauri **itsas bazterreko arrantza** kaietan txakur mota hau aspaldidanik ezaguna izan dela. ETC-entziklopedia

Harik eta XVIII. mendearen bukaerarako Lezoko ekonomian garrantzirik zeukan itsas lanbide bakarra **itsas bazterreko arrantza** izan arte. ETC-entziklopedia

23 *itsas zabaleko arrantza* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Itsas zabaleko arrantza (Hegoaldean batzuetan alturako arrantza) kostaldetik urrundutako eremuetan praktikatzen den arrantza mota da. ETC-entziklopedia

Itsas zabaleko arrantzan aritzen direnek baino ez dute lan ituna, "baina berritu gabe dago". ETC-prentsa

Lan honetako lehenengo zatian, **itsas zabaleko arrantzako** , bereziki arrastre-arrantzako, itsasontzi bateko arrisku psikosozialetako eragileen identifikazioa aztertzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ehizaren intentsifikazioaren adibide ona **itsas zabaleko arrantzaren** garapena izan daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

24 *itsasbazterreko arrantza* *(corpusean ez dago; ETCn **32** agerraldi)*

Itsasbazterreko arrantza (Hegoaldean batzuetan baxurako arrantza) kostaldetik gertu egiten den arrantza da, ontzi txiki edo ertainetan, hain zuzen. ETC-entziklopedia

Izan ere, espezie horien arrantzari dagokion sektoreak, **itsasbazterreko arrantzak** , Bizkaian eta Gipuzkoan bakarrik, 2.000 lagun baino gehiagori ematen die zuzeneko enplegua. ETC-prentsa

Antxoaren arrantza-aldi tradizionala, Euskal Herriko **itsasbazterreko arrantza** sektoreko garrantzizkoena igaroko ahal da Espainiako eta Frantziako gobernuek inposatutako mugaren alde bateko eta besteko arrantzaleen arteko liskarrik gabe! ETC-prentsa

Gainbeherak ekarritako galerei aurre egiteko Donibane Lohizune eta Ziburuko kaian **itsasbazterreko arrantzak** sekulako gorakada ezagutu zuen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Itsasbazterreko arrantzan aritzeko eginak ziren eta ez ozeanoz haraindiko bidaiak egiteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

25 *kirol arrantza* *(corpusean ez dago; ETCn **50** agerraldi)*

Aisialdiko arrantza edo **kirol arrantza** plazeragatik edo lehiaketa modura egiten den arrantza da. ETC-entziklopedia

Espresuki debekatuak daude **kirol arrantza** mota guztiak. ETC-literatura, saiakera

Bertakoen arrantza-estiloa, ordura arte erlaxatua eta ahalegin txikikoa, alegia, aitzakia bat kanpoan tartetxo bat pasatzeko, egiazko **kirol-arrantza** bat baino, zeharo aldatu zen, eta ehiza larriaren antzeko zerbait bihurtu zen. ETC-literatura, saiakera

Marokok berak kirola bere okupazio ilegalaren statu quo errekonozitua izan dadin erabiltzen duelako, Paris-Dakar edo **kirol-arrantzaren** kasuak kasu. ETC-prentsa

Hantxe dute bilgunea **kirol arrantzan** aritzen diren guztiek. ETC-prentsa

Kirol arrantza egiten ari zen pertsona batek Sos Deiak-era deitu zuen herenegun, eta Matxitxako aldeko harrizko hondartza batean balea bat zegoela ohartarazi zuen. ETC-prentsa

Azkenaldian abian jarritako politikak bai Ondarroan bai gainontzeko herrietan **kirol arrantzari** lotutakoak izan direla kexatzen da. ETC-prentsa

Europako Batasuneko arrantza ministroek **kirol arrantzari** buruzko neurriak ere hartu dituzte. ETC-prentsa

Eulia **kirol arrantzan** erabiltzen den amu mota bat da. ETC-prentsa

Kirol arrantzako jarduerak hasiko dira gaur Argan. ETC-prentsa

26 *merkataritza-arrantza*

Balearen **merkataritza arrantza** galarazi dute. Berria - Gaiak

Balearen **merkataritza arrantzaren** debekua mantentzea erabaki zuten atzo. Berria - Gaiak

27 *ur-azaleko arrantza* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ur-azaleko arrantza : gehienez ere 200 metroko sakonerara iristen da. ETC-entziklopedia

28 *ur handitako arrantza* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Bakailaoa aurkitzean **ur handitako arrantza** garatu zuten, eta hari eskerrak suteak eta bestelako zoritxarrak gainditu zituen Donibane Lohizunek. ETC-entziklopedia

29 *urpeko arrantza* *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)*

Ernest soinu-teknikaria da irrati batean, eta **urpeko arrantza** du hobby. ETC-literatura, saiakera

Hor baitira Txingudi, Endaika, Club Maritime eta holako elkarteak, bai eta Agachon-Club deitzen dena, hau **urpeko arrantzan** berezitua. ETC-prentsa

Garai baten, bizi iraupena zen **urpeko arrantzaren** helburua, eta gaur egun apnea izenez ezagutzen den eran murgiltzen ziren uretan gizakiak. ETC-prentsa

Betidanik gustatu zaio itsasoa: Euskal Herrian **urpeko arrantza** egiten zuen, eta Australiara iritsi zenean are gehiago piztu zitzaion interesa. ETC-prentsa

Kamera eskuan ez bazuen, itsas azpian ibiltzen zen **urpeko arrantzan** : adibidez, txitxardinen bila ibili da. ETC-prentsa

Batetik, urpekaritza egiteko eta **urpeko arrantzarako** materiala saltzen dute, eta, bestetik, urpekaritzarekin lotutako mota guztietako ikastaro, irteera eta bidaiak egiten dituzte. ETC-prentsa

Urpeko arrantzarako grina bizia du, eta alor horretan erronka berezi bati aurre egiten dio. ETC-prentsa

Lagunarteko solasaldiak, **urpeko arrantza** eta gastronomia maite zituen, adibidez. ETC-prentsa

Orduz geroztik, **urpeko arrantza** izan zuen zaletasun nagusi. ETC-literatura, saiakera

Itota hil zen **urpeko arrantza** egiten ari zela. ETC-entziklopedia

Arnasketa boluntarioki etetea, era berean, hainbat milurteko dituen jarduera baten oinarria da: arnasketa gabeko **urpeko arrantza** . ETC-entziklopedia

Surfa eta **urpeko arrantza** atsegin dutenentzat oso egokia da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antxua arrantza (5); **arrantza akordioa** (4); **arrantza bertan behera** (3); **arrantza da** (4); **arrantza debekatua** (4); **arrantza egin** (3); **arrantza egitea** (4); **arrantza egiteko** (9); **arrantza egiten** (8); **arrantza egitera** (7); **arrantza eta elikadura** (6); **arrantza eta nekazaritza** (3); **arrantza idazkari** (3); **arrantza industriaren** (5); **arrantza komisario** (4); **arrantza kuotak** (3); **arrantza ministerioak** (4); **arrantza ministro** (3); **arrantza ministroa** (3); **arrantza ministroen kontseiluan** (3); **arrantza mota hori** (6); **arrantza ontzi** (5); **arrantza ontzia** (5); **arrantza ontziak** (7); **arrantza politika** (5); **arrantza sailburu gonzalo** (3); **arrantza salatzeko** (3); **arrantza sare** (3); **arrantza untzi** (3); **arrantza untziak** (4); **arraste arrantza** (4); **baleen arrantza** (4); **batean arrantza** (3); **da arrantza** (3); **dira arrantza** (5); **ebko arrantza** (6); **espainiako arrantza ministroak** (5); **espinosa espainiako arrantza** (6); **europako arrantza** (7); **euskal arrantza** (4); **eusko jaurlaritzako arrantza** (7); **galiziako arrantza kontseilariak** (3); **gehiegizko arrantza** (8); **ingelesezko fishing arrantza** (3); **legez kanpoko arrantza** (6); **nekazaritza eta arrantza** (39); **zen arrantza** (3); **zuen arrantza** (3)

arraste arrantzak (3)

arrantzan ari (12); **arrantzan aritu** (3); **arrantzan aritzen** (3); **arrantzan edo** (5); **arrantzan egin** (3); **arrantzan ibiltzen** (3); **arrantzan jarduten** (3); **dira arrantzan** (4); **ehizan edo arrantzan** (3); **isileko arrantzan** (4); **zen arrantzan** (3); **ziren arrantzan** (4)

arrantzara joan (4); **arrantzara joatea** (3); **edo arrantzara** (3)

arrantzarako nazioarteko batzordea (3); **balearen arrantzarako nazioarteko** (5)

arrantzaren aurkako (3); **gehiegizko arrantzaren** (3)

arrantzatik bizi (4)

arrantzaz eta kontserbutegiez (3)

---

arrantza[2] 1 *iz* astoaren orroa.

Sarri, pertsiaren aurkako erasoen erdian, zaldiek astoen **arrantza** aditzean, asaldaturik atzea eman ohi zuten. Patziku Perurena

Halatan, jende printzipalarendako egokiagoa, jakin ezak, bertzalde, zaldiak irrintzi egiten duela, eta astoak **arrantza** , eta ez dagoela alde handirik irrintzitik **arrantzarat** . Joan Mari Irigoien

Sei urte nituen arren, zer ongi gogoratzen dudan aitonaren ihardespen hura, zaldien irrintziak eta astoen **arrantzak** dantzatzen zituena. Joan Mari Irigoien

2 *astoaren arrantza*

Ahuntzaren umea ez bazen, oiloaren txixa izango zen, edo **astoaren arrantza** bestela. Xabier Etxabe

-Esdrasen **astoaren arrantzak** ! -oihukatu zuen . Patxi Zubizarreta

---

arrantzaka *adlag* astoez eta mintaatuz, arrantzatzen, arrantza eginez; oihuka.

Arrantzaka noizean behin astoren bat, eta kurrinka txerriak, eta miauka katuak. Patxi Ezkiaga

Baserri hutsaren aurrean astoa **arrantzaka** , karroa eta uhalak soinetik inork askatzen ez zizkiola. Joseba Sarrionandia

Emakumea zarataka, oihuka, **arrantzaka** hasi da bere ondoan makurturik. Sonia Gonzalez

Negarrez hago, **arrantzaka** , eta ez zaik batere inporta inork entzun diezaan. Pedro Alberdi

Hain urduri nengoen, non azkenerako barrez lehertzeko zorian jarri nintzen berriz ere, eta ez nuen beste erremediorik izan -hain baitzen bortitza ezin eutsi nuen algara- **arrantzaka** negarrez hasteko itxurak egitea baino. Ramon Saizarbitoria

Hantxe zegoen Florence Miller andrea: eskuarki negar-**arrantzaka** jarduten zuen arren, gizasemeak irrikatsu inguratzen zitzaizkion laster batean adore ematera eta kontsolatzera. Mirentxu Larrañaga

Telefonoa utzi eta negarrez **arrantzaka** hasten da Iñake. Xabier Mendiguren Elizegi

Seriotan esaten ziola ikusi ahal izan zuen eta, nondik norakoak eta nola zitekeen konprenitu gabe, berak maite zuela sinetsarazten saiatu zen; alferrik: emazteak **arrantzaka** ziharduen. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrantzaka hasi zen (3); **arrantzaka hasten** (3)

arrantzaldi *iz* arrainen arrantzan jarduten den aldia.

Atuna zein berdela, **arrantzaldia** ahitzen zenean, amaieraren ikur eta ospakizun gisa, beste doinu bat paratu ohi zuen tabernariak, doinu parea hobeto esanda: "Eusko Gudariak" eta "Internazionala" elkarren segidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaueko bere **arrantzaldi** haietan, zenbat txortaldi izan zituen, horren arabera arrain bat edo beste harrapatu zuela esango zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ormaza Kontserba enpresako kudeatzaile Iñaki Lauzirikaren esanetan, atunaren **arrantzaldia** aurreratzea "arriskutsua" izan zitekeen kontserba enpresentzat. Berria - Harian

Atzoko lana ohitura bihurtzea gura dute arrantzaleek antxoaren **arrantzaldia** ondo doan seinale litzakete hori. Berria - Ekonomia

Hegaluzearen **arrantzaldiak** hobera egin du. Berria - Harian

Martxoko **arrantzaldiak** goraino bete ohi du Bermeoko izozte planta. Berria - Harian

Antxoatik bizi dira asko, eta ez dute erraz ahaztuko aurtengo **arrantzaldia**. Berria - Harian

Frantziarrak, berriz, apirilean itsasoan ibili ostean, gelditu egingo dira, bi hilabete gero berriro ekiteko, euskaldunek udaberriko **arrantzaldia**. amaitutzat ematen dutenean, alegia. Berria - Ekonomia

Aste hasieran kosteraren lehen egunean egindako **arrantzaldiarekin** gustura bazeuden ere, Gipuzkoa eta Bizkaiko arrantzaleek ez dute antxoarik batere harrapatu asteazkenetik. Berria - Ekonomia

· Antxoa **arrantzaldi** bete-betean gaude eta orain ezin gara protestan hasi. Berria - Ekonomia

Bizkaiko eta Gipuzkoako arrantzaleak Espainiako Arrantza sailburuarekin bildu ziren atzo, berdel **arrantzaldi** kaskarrari buruz hitz egiteko. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
antxoaren arrantzaldia (3); **atunaren arrantzaldia** (3); **aurtengo arrantzaldia** (3)
arrantzaldiari ekin (3)

---

arrantzale *(ETCn **14.623** agerraldi; orobat **arraintzale** g.er.)* **1** *iz* arrainak harrapatzen dituen pertsona, eskuarki lanbidetzat arrantza duena.

Espantu egitekorik ez dute lapurtar **arrantzaleek** aurtengo atunaren kanpainaren ondotik. Herria

Jaurlaritza eta **arrantzaleak** pozik, itunaren gaineko etena kendu baitu Auzitegi Konstituzionalak . Berria - Ekonomia

Hatz lehorrari begira geratu zen, tarte luzez, hatz erakuslean amu bat sartu zaion **arrantzalearen** bisajearekin, minduta baino gehiago, lotsatuta. Harkaitz Cano

Ez zen zerua behera jausi **arrantzaleak** zein beste itsastar batzuk euren portuetatik banaka eta multzoka ere alde eginez joan arren; Bidasoaz beste aldeko portuetara, eta Bizkaikoetara ere bai, Hernando gurera etorri zen moduan. Edorta Jimenez

Bermeoko **arrantzaleentzat**, Bermeotik ekialdera dauden portuetako marinelak dira goitxarrak, hau da, lekeitiarrak eta ondarrutarrak, baina gipuzkoarrak batez ere. Iñigo Aranbarri

Eta egia da **arrantzaleak** kritikatu zituela beren basakeria arduragabeaz ozeanoko azken balea desagertaraziko baitzuten egunen batean. Karlos Zabala

Entzun ordea, nola esaten duen **arrantzale** batek hitz hori. Josu Zabaleta

Izan ere, edozein **arrantzalek** daki ekainaren lehenengo egunetan ez dela amuan jartzeko zizare nahikorik egoten inon. Hasier Etxeberria

Mutilak gazteluaren berri galdetu, eta neskak azaltzen dio Errege **Arrantzalearen** gazteluan egon dela, eta Grial Sainduaren segizioa ikusi duela; eta nola izena duen galdetzen dio. Juan Kruz Igerabide

Ugormin aurtikitze bi boladaren artean Bresteko bahia maite nuela gogoratzen nintzen, batez ere aizkorriko eurien menpe hirotzen zihoan arrainaren usaina, **arrantzaleek** agian noizbait konpontzeko metatzen zituzten sareenarekin uztartzen zela, itsas ainaren harramantza etengabea lagun. Itxaro Borda

Oroitzapenak zekarzkion idiari eusten zion gizon sasoiko txapeldun hark, arrauna jasotzen zuen **arrantzaleak**, "Gure etxera datorrena... ". Unai Iturriaga

Erasorako asmoarekin, txalupa irauli egingo da eta **arrantzale** batzuek atera egin beharko dituzte bai zalduna bai ezkutaria. Patxi Ezkiaga

Umetan **arrantzaleei** entzuten zien deabruzko hizkuntza hura, euskara, ulertzen eta pixkanaka mintzatzen, hain zuzen. Inazio Mujika Iraola

Bestalde, Errobi ibaiaren ur berdoztetan ubarroiak eta **arrantzaleak** ikusi ditut, eta mendi hegaletan haritz, gaztaina, sahats eta urkiak. Patxi Zubizarreta

Otarrainaren aroa delarik, otarrainaren arrantzako prestatuak diren ontzietan joaten dira herriko **arrantzaleak**, eta, bakailaoarena delarik, bakailaoarentzako apailatuak direnetan. Aurelia Arkotxa

Laborariek goldea utziko dute eta **arrantzaleek** sareak. Juan Garzia

Eta gabarrako **arrantzaleengandik** guganaino, hitz erdi bat edo beste iristen, bakandurik, ulerkaitz. Txillardegi

Arrantzaleak erruz zeuden pasealekuan, kanaberaz osatutako ilara luzeen inguruan kokaturik, hausnarketa bakartian nahiz taldekako berriketa lasaian. Jon Arretxe

Atzean doan **arrantzaleak**, sarea daramanak, sarea zabaldu eta ar koittadu haiek harrapatzea besterik ez du izaten, arrain arrak hantxe pilatzen baitira gurariak itsututa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arrantzaleak izango dira ur-bazterrean eta En-Geditik En-Eglaimeraino sareak jarriko dituzte lehortzen, eta han Mediterraneo itsasoan bezain ugari izango dira arrainak. Elizen arteko biblia

Gauza guztien artean, **arrantzalearen** sare erraldoia bakarrik ikusten dut. Bernardo Atxaga

Irribarre bat azaldu zen goiz jaikitzeak ilundutako bisaian: **arrantzaleari** begiratu zion; gero, urruntzera zihoan automobilari; irribarretsu buruari eragin zion. Migel Angel Mintegi

-Arrantzan dakiena **arrantzalea** duk. Joan Mari Irigoien

Arrantzaleak amuak botatzen dituen moduan idazten ditugu eskutitzak, eta zain geratzen gara. Jokin Urain

Baina **arrantzalea** izanez gero, aski zenuen hura lanpetuta ibiltzeko. Koro Navarro

Eta baita biztanleen artean ere - galdetu, bestela, **arrantzaleei**, edota olibondoetako jornalariei. Iñaki Heras

Bere kabuz ikasi zuen, herriaren beharrei begira, **arrantzaleei** eta kostako baserritakoei laguntzeko asmoz eta nahiz. Pello Zabala

Arrantzalearen andreak sareak josten: arrainen armiarma, gizonaren euli. Joxerra Garzia

Handiak dituzue, berdin ezinak, zuen kostako **arrantzaleen** balentriak. Anjel Lertxundi

2 (izenondoekin)

Etorri berria **arrantzale** zaildua zela igarri nuen. Edorta Jimenez

Bertzalde, **arrantzale** bakartiaren eta txitxarroaren artekoa, ikusiko dugu, maitasun harreman erabakigarria izatera hel daiteke. Markos Zapiain

-Omen! -esan zuen Okendok, eta gero niri begiratu zidan, ze han nengoen ni, geldi, **arrantzale** ingelesen zoriaz kezkaturik; akabatu egin ote zituzten? Edorta Jimenez

Inguruko **arrantzale** zahar batzuk agertu ziren. Paddy Rekalde

Orain zuri kontatzen dizut, baina ez dut espero Lofodengo **arrantzale** alaiek baino errazago sinetsiko duzunik. Koro Navarro

Afrikako kostaldeko lehoiak amesten zituen **arrantzale** zahar hura eta ni ez gara hain ezberdinak eta ez gaude herioak atea noiz joko zain. Aritz Gorrotxategi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

"Goazen bestaldera" -esan nien lagunei-, "**arrantzale** botak zeudek Griffithen erakusleihoan". Koro Navarro

Donibane Lohizunen eta Ziburun, **arrantzale** elkarteek dei bat zabaldua dute ahal bezenbat diru biltzeko Asia hego-ekialdean itsas ikarak funditu dituen portuetako arrantzaleak laguntzea gatik. Herria

Kondatzen du **arrantzale** familia baten ixtorioa, **arrantzale** mundu hori doi bat ezagutaraztea gatik. Herria

Hain zuzen ere, zer esango ote luke, bizi balitz, Ondarroako **arrantzale** baporeak gaur egun senegales-ez josita (tripulazio gehientsuenak senegalesak dituk, bai) daudela ikus-entzungo balu? Jokin Urain

Itsasora jotzen zuten karrikak zeharkatu zituen arin baino arinago eta itsasoaren aurrera iritsitakoan ez zuen gerra itsasontzirik, ez **arrantzale** txaluparik ikusi, itsaso urdin-urdina, itsaso amaigabea baizik. Felipe Juaristi

Cojimar-eko auzo bat zen, Ernest Hemingwayk Kuban bere unerik goxoenak igaro zituen **arrantzale** portu txikikoa. Jon Muñoz

Agay izeneko badiaren hondoan ostatu bat dago eguraldi txarra dela eta bertan babestu beharra daukaten ontzien kapitainentzat, udan **arrantzale** jendea ere hartzen duena... Bernardo Atxaga

Hiztegi bat bainoago, hobe luke **arrantzale**-kanabera ondo hornitu bat erostea senarrari, eta beita fresko-freskoak, pentsatu zuen Ruche jaunak, lantegira itzulirik. Jon Muñoz

Kapitain jauna, jakin behar zenuke nolakoa den Trintxerpe, beharbada entzuna izanen zara izen hori noizbait, Euskal Herriko **arrantzale** auzo tipikoa da, Pasaiako portuan. Koldo Izagirre

Gure auzoko **arrantzale**-herriaz ere berdin esaten da, bera dela GIB birusdun gehien dituena. Edorta Jimenez

Txokolatea eta galleta batzuk erosi genituen, eta arreta osoa haiek jateari emanda ibili ginen **arrantzale**-familiak bizi ziren kale arloteetan barrena. Irene Aldasoro

"Egia esan, ez zaio hartzen **arrantzale** herrixka baten tankerarik", aipatu zuen Mikelek umorez. Bernardo Atxaga

Eta **arrantzale** semeren baten esku sendo dardaratiak igurtziko zien igual krema hori. Joseba Sarrionandia

Horretaz gin, **arrantzale**-kofradiei eman beharreko kalte-ordain gehienak ordaindu dituztela esan zuen atzo Maria Teresa Fernandez Espainiako Gobernuko presidenteordeak. Berria - Gaiak

4 *arrano arrantzale* *(corpusean ez dago; ETCn **133** agerraldi)*

Arrano arrantzalea ("Pandion haliaetus") erdi-mailako hegazti harraparia da, arrantzan nagusia, bere elikadura arrainetan oinarritzen da eta mundu osoan zehar aurki daiteken espeziea da (Antartikan izan ezik). ETC-entziklopedia

Tranpa hezera... agidanez eta zorigaiztoz, **arrano arrantzaleak** harrapakin handiegia aukeratu du. ETC-literatura, saiakera

Garbiketa orokorra izan zen, ia erabatekoa, ale gutxi batzuk baino ez omen zituzten bizirik utzi, **arrano arrantzaleek** zer jan izan zezaten. ETC-literatura, saiakera

Ehun hegazti espezie baino gehiago pasatzen dira Urdaibaitik, bai Afrikatik Europara, bai Europatik Afrikara: mokozabala, lertxun hauskara, **arrano arrantzalea**, kurlinta, txirria, aliota... ETC-prentsa

Baina, arrantzalerik ederrenetarikoena eta galtzeko arriskuan dagoena **arrano arrantzalea** dugu, migratzailea da eta Europa osoan arriskupean dago. ETC-prentsa

Arrano arrantzalea berreskuratzeko, lehen aldiz hamabi txita ekarri dituzte Eskoziatik Urdaibaira. ETC-prentsa

Eraztuntzeez gainera, badituzte beste zenbait proiektu: **arrano arrantzalearekin**, esaterako. ETC-prentsa

Arrano arrantzaleek eta antzarek hala egiten dute Europa zeharkatzeko bidaietan. ETC-prentsa

5 *arrantzale-korapilo* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

-Korapilo bikoitzak, **arrantzale-korapiloak**, tximeleta-korapiloak... nahi dituzun guztiak egingo dizkizut, baina aurrena istorio hau entzun behar dut. ETC-literatura, saiakera

6 *arrantzaleen irabazi* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Ibai nahasia **arrantzaleen irabazia** izaten da, eta egoera horretan itsasontziko patroiari egokitzen zaio beti alderik onena. ETC-prentsa

Ibai nahasia, **arrantzaleen irabazia**: berriz ere hormigoiaren inperioa da garaile, eta baita eraikuntza enpresak ere -ala txikizio enpresak dira?-. ETC-prentsa

Ebro arroko 778 eta geroko egoeran, bihurtu zen Ebroko arro nahasia **arrantzaleen irabazia**, Abd al-Rahman urte horretan Ebroko arroan garaile atera arren. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *hontz arrantzale* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Hontz arrantzalea ("Ketupa zeylonensis"). ETC-entziklopedia

8 *itsas arrantzale*

Laborantza eta arrantza elgarri lotuak-eta, Akitaniako **itsas-arrantzaleen** elkarteak zuen erakustegi hori xarmanki muntatua, Louis Blancho elkarteburua sustatzaile, eta ziburutar batzu kudeatzaile, Pantxoa Pery-ren inguruan. Herria

9 *martin arrantzale*

Batzuetan, ibai-bazterrean behera egiten genuen, eta **martin arrantzaleen** ñir-ñir distiratsuei begira egoten ginen han. kanabera artean ezkutaturik, **martin-arrantzale** ñabarra, lezka-txoria, uroiloa eta kopetazuri maltzurra egon ohi dira. Mirentxu Larrañaga

10 *urpeko arrantzale*

Hori dela-eta, zaindari izendatu dute eta babesa eskatu diote marmolariek, txalupazain, ontzizain eta marinelek; urpean hilobiratu zutenez, urpekariek eta **urpeko arrantzaleek** ere aukeratzea daukate. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrantzale asko (5); **arrantzale bat** (14); **arrantzale batek** (11); **arrantzale baten** (6); **arrantzale batzuek** (8); **arrantzale batzuk** (6); **arrantzale familia** (3); **arrantzale gazteen** (3); **arrantzale gisa** (3); **arrantzale haiek** (3); **arrantzale herri** (4); **arrantzale herrixka** (5); **arrantzale horiek** (3); **arrantzale izan** (3); **arrantzale jendea** (4); **arrantzale mundu** (5); **arrantzale munduan** (3); **arrantzale portu** (4); **arrantzale talde** (3); **arrantzale untzi** (6); **arrantzale untzi batzu** (3); **arrantzale zahar** (7); **euskal arrantzale** (3); **giza arrantzale** (3); **kostaldeko arrantzale** (3)

---

arrantzaleku *iz* arrantzan egiten den tokia.

Latza izango zen itsasoa igo eta urak **arrantzaleku** on guztiak estaltzea haiek hondartzara iritsi aurrez. Bizkaiko Golkoko **arrantzalekuetan** aritzeko baimenik ez zuten 200 ontzi horiek gaurdaino. Anton Garikano

Atzera martxoaren 1ean zabaldu ditu **arrantzalekuak**. Berria - Ekonomia

"Baldin eta antxoa badago eta berriro **arrantzalekuak** ixten ez baditutzte", zehaztu du Tejedorrek. Berria - Ekonomia

2006. urterako antxoa **arrantzalekuak** ixten badira, Arcachongo Ituna berriro negoziatu beharko dela onartu du. Berria - Harian

Bruselak **arrantzalekuak** gutxienez beste urtebetez itxi behar zituela uste du. Berria - Harian

Estu hartu nahi dute EB, **arrantzalekuak** zabal ditzan irailetik aurrera. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrantzalekuak ixten (3)

---

arrantzari *(orobat **arraintzari**)* **1** *iz* arrantzalea.

Adivasien dantzak, euskal dantza zaharrak bezala, gizaldiz gizaldi lurrari, bizi diren toki naturalei, ehizari, **arrantzari** eta etxeko animaliei lotuak daude. Gotzon Garate

Jende laborari xumea da hangoaren parte bat, itsasaldeko **arrantzari** xehea beste bat. Herria

Gorputz borobila dute eta sama luzea, bizkarraldea beltza eta paparraldea zuria, **arrantzari** miresgarriok. Joseba Sarrionandia

Kablearen muturretik tiraka, zenbait suhiltzailek ahaleginean ziharduten, **arrantzari**-bota luzeetan balantzaka, ibai-zola hil agorrak tipituan. Aingeru Epaltza

2 (izenondo gisa)

Izan ere, emakume hura Donibanekoa zen eta, beraz, herri **arrantzari** bateko alaba, topikoaren baldintza guztiak betetzen zituena. Joan Mari Irigoien

---

arrantzatu, arrantza(tu), arrantzatzen **1** du *ad* arrainen eta kidekoen arrantzan jardun.

Argentinako eta Txileko itsasoetan **arrantzaturiko** legatzak. Iñaki Heras

Lagundu egingo diogu eta gero zapaburuak **arrantzatuko** ditugu otarreekin. Itziar Otegi

Europako Batzordeak atzo jakinarazi zuenez, Nafarroako Unibertsitatea eta Arabako Geasa y Salica Industria Alimentaria enpresa ikerketa batean ari dira lanean, beste hainbat unibertsitaterekin, **arrantzatutako** arrainen eta hazitegietako arrainen kontsumoa hobetzeko. Berria - Euskal Herria

Bermeoko Talan gaude, eta Emeterio Sernak Almerian **arrantzatutako** hegaluzea prestatzen ari da Edorta, amantala soinean eta tipula gora eta behera. Markos Zapiain

Asko dira, bestalde, nahi gabe **arrantzatutako** zetazeoak ere. Berria - Gaiak

Kalkulatzen denez, munduan saltzen diren arrainen %20 legez kanpo **arrantzatutakoak** dira. Berria - Gaiak

2 irud/hed

-Egun batean **arrantzatu** egingo zaitut, eta erreta jango zaitut, Luth maitea! bere altzora zoritxartutako gaixoak **arrantzatu** nahi zituen Heriok, urandituen pisupean oihalaren josturak betiko itxiz. Joanes Urkixo

Bada, hara, Fortinbras gazteak, soberako kemen beroz gainezka, gizon lurgabe bipilezko saldo bat **arrantzatu** dik. Juan Garzia

Horra, bada: gezurrezko beitaz duzu egiaren zamo bapoa **arrantzatuko**. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrantzatu dute** (3); **arrantzatu nahi** (4); **ere arrantzatu** (3); **tona arrantzatu** (3)
> **arrantzatuko dituzte** (3)
> **arrantzatzen ari** (3)

---

arrantzontzi **1** *iz* arrantzan egiteko itsasontzia.

Eguzkia gorde egiten da, ilargia ageri da, **arrantzontzi** bat jalgi da badiatik, ozeanoaren eta mendiaren ikuskizun guztiak eskaintzen zaizkit zeruaren ikuskizun guztiekin batera. Koldo Izagirre

Atxilo hartu dute **arrantzontzi** bat, Frantziara ihesi zihoala. Inazio Mujika Iraola

-Gure ontzi mozorrotuetako batek ingelesen **arrantzontzi** bat harrapatu dik. Edorta Jimenez

Beste argazki batean Mundakako beste **arrantzontzi** batzuk ageri dira, txopako mastatxoan bandera lutoz jantziekin. Edorta Jimenez

Aquariumera iritsi zirenean, Kontxako eta Ondarretako hondartzak ikusi zituzten; eta portua, non belaontzi eta **arrantzontzi** batzuk baitzeuden. Joan Mari Irigoien

Bera marinel dabilen *Aintzatasuna* **arrantzontzia** beste baporeekin batera Bilborako da-eta, ahor herrikoak enbarkatzen. Edorta Jimenez

Portutik hurrean, merkantea ia trabes zegoela portuaren ahoan, **arrantzontziak** buelta eman zuen eta ateko bandarantz abantean abiatu zen, atzetik zetorren destruktorearen aurrez aurre. Joseba Sarrionandia

Imajinatu ahal izan duzu inoiz zure **arrantzontziak**, zeureak, bai, armaz egokiro horniturik eta eskifaia ausart baten eskuek gidaturik, nazien urpekariren bat hondatzeko gai izan litekeenik. Edorta Jimenez

Hamasei urte noiz beteko zain zegoen aitarekin **arrantzontzian** lanean hasteko. Joseba Sarrionandia

Arrantzontziaren gainean sokak antolatzen ari zen arrantzale bizargorri batek so egin zidan, baina ez zidan ezer esan. Joseba Sarrionandia

Erbinude hura, Morito izenekoa, hondoratutako **arrantzontziko** maskota omen zen, eta biak izan ziren bizirik irten ziren bakarrak. Iban Zaldua

2 (izenondoekin)

Kaia, itsasoa eta Santa Klara uhartea nituen begien aurrean, **arrantzontzi** gorri handi eta zahar bat orduantxe kaian sartzen, kaio batzuk hegaka. Juan Luis Zabala

Eskuinean, eguzki betea, itsas gain gardenean distiratsu; eta kaioak, kolore biziko **arrantzontzi** txiki batzuen inguruan. Anjel Lertxundi

Iluntasuna aprobetxatzea hobe izango zela, eta Talaimendiko muturrean igo ziren **arrantzontzi** txiki batera ostatuko bikote zaharra, Roman bera, ontziko patroia eta beste sei bat zibil. Inazio Mujika Iraola

Ontzi ugari dago moilan, turistak karelean erakusten dituen kruzero handi dotore bat ere bai, hirulau **arrantzontzi** txiki zahar kalamastraren alboan. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrantzontzi bat** (6); **arrantzontzi batean** (3); **arrantzontzi txiki** (3)

---

arrantzu **1** *iz* arrantza.

Gipuzkoako ontziek 4,5 milioi kilo hegaluze harrapatu dituzte aurtengo **arrantzu**-aldian, iaz baina %30 gehiago. Berria - Ekonomia

Sub-ak Kubako kosta osoan gora eta behera zabiltzak, ura eta jatekoa eskuratu behar dutenean Kubako **arrantzu** lekuetan urgaineratuz. Edorta Jimenez

Bai eta Pedroren **arrantzu**-lagun Santiago eta Joan Zebedeoren semeak ere. Elizen arteko biblia

Motoristak behar ditiagu, eta **arrantzu** patroiak ere bai... Koldo Izagirre

2 ***arrantzura larrera joan***

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuari eta Ebroko Hidrografia Konfederazioari sen ona eskatzea "**arrantzura larrera joatea** bezala» dela esan zuen, etsita. Berria - Euskal Herria

Aho batez onartu zuten gezurtiari egiarik entzun nahi izatea **arrantzura larrera joatea** bezala dela. Jose Morales

---

arrantzuntzi ik **arrantzontzi**.

---

arrapaketa *iz* arrapatzea.

Aldiz 30 mila toneladaren orde 5 mila toneladaren **arrapaketak** onartuz bakarrik. Herria

Arrapaketa txikiagoak izanki eta, pentsa zitekeen prezio hobeak aterako zituztela salmentetan. Herria

Oroit-arazten dute aurten sekula baino **arrapaketa** handiagoak burutu dituztela, hala nola 15 tona kanabiz arraxina. Herria

---

arrapala **1** *iz* arranpala.

Jaitsierako **arrapala** horrek hiru metro ditu eta 75 segundotan jaitsiko du robotak. Berria - Gaiak

NASAko zientzialarien esanetan, "arazorik gabe" jaitsi zuen Opportunity robotak **arrapala**, eta handik gutxira bidali zuen lehen irudia. Berria - Gaiak

Spirit robotak ordezko mailatik jaitsi behar izan zuen, hartarako prestatutako **arrapala** zundak lur hartu zuenean blokeatu zelako. Berria - Gaiak

Marteko lurra ez kolpatzeko aire poltsetako batek utzi zuen **arrapala** ezertarako ez zela. Berria - Gaiak

2 ***arrapala bestibular*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hodi koklearraren ertzeko irekigune txikia, **arrapala bestibularraren** eta arrapala timpanikoaren artekoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Soinu bibrazioak erdi belarri erdiko belarritik sartzen dira **arrapala bestibularraren** bidez, estriboa leiho biribilean eragiten duelako. ETC-entziklopedia

---

arrapalada *iz* lasterraldia.

Mikel **arrapalada** batean joan zen sukaldera, zereginik ez zuela jakinaren gainean. Unai Iturriaga

Ermitaren ondoko belardira igotzen ginen, **arrapalada** batean, nor aurrena, eta arnasestuka, kilkerrak harrapatzera. Txillardegi

Laureano agertu zen, Marisa, eta Inaki, eta gehiago, eta herritik ezagutzen nuen Angela izeneko neska batek eskua eman zidan erori nintzen batean eta **arrapalada** hartan, geratu ezin hartan, jendea erortzen, basoan galtzen ere ikusi nuen egun haietan, baina ezin ginen han geratu, bestela, bertan jango gintuen. Jon Maia

Izuturik, gaua bukatu zaiela pentsatzen baitzuten, **arrapalada** bizian ekin diote ihesari. Anjel Lertxundi

Erotu beharrean zihoan lauhazka, **arrapalada** bizian, arbasoengandik zetorkion gerlarien odol beroa zainetan barrena berriro su hartuta ibiliko balitzaio bezala. Agustin Otsoa

Arrapalada izugarrian egin zuten ihes gainerako zerriek, eta eremu zabal bat hustu zen nire inguruan. Joxan Elosegi

Hamlet, hire ekintza horrek, heure segurtasunarengatik -zeina hain ardura baitzaigu nola baitugu bihotzetik samin egin duanarengatik-, behartzen naik hi erbestera igortzera **arrapalada** bizian. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrapalada batean** (6); **arrapalada bizian** (9)

---

arrapaladaka *adlag* korrika eta presaka.

Sortu berri den haizeak **arrapaladaka** egiten du bidea ate nagusitik nasatara. Anjel Lertxundi

---

arrapaladan *adlag* lasterraldi bizian.

Orduan, neskaren etxera abiatu ziren **arrapaladan**, euren maitasuna aitortzera. Julen Gabiria

---

arrapaladatsu *izond* presakakoa.

-Beno... Zera... -eta duda-muda urduriaren ondoren, dena segidan esan zuen, hizketaldi **arrapaladatsuarekin** hitz egin beharraren zama arindu nahirik-: Senarra itsasoan duela, sasiko haur bat munduratu izanaren lotsagarrikeria leporatzen dioten neska gazte adultero baten oinazeak kontatzen ditu. Anjel Lertxundi

---

arrapasatu ik **errepasatu**.

---

arrapastaka *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) adlag* arrapaladan, harrapaka.

Arrapastaka erantzi zuen bata Aleksandrak, karrete batzuk hartu zituen frigorifikotik bere kutxatxo magikoa iduneko bazihoala esanez, itxaroteko bertan. ETC-literatura, saiakera

Arrapastaka, grina handiarekin jan genuen, hitz egiteko denborarik hartu gabe, ogitartekoari begira, bukatu ez zedin amestuz. ETC-literatura, saiakera

Dudko pisu-jasotzaileak galtzetako goiko botoia lotu zuen, **arrapastaka**. ETC-literatura, saiakera

Bere oharrak **arrapastaka** bildu, eta oholtzatik jaitsi da Moreno. ETC-literatura, saiakera

Esainek, aldiz, binakako txapelketa nagusi batean lehen agerraldia zuen atzokoa, eta berezkoa duen izaera urduriari jarraiki, **arrapastaka** hasi zuen partida. ETC-prentsa

---

arrapataka *adlag* presaka eta muturka.

Soldaduak, zer gertatzen zen konturatzerako, gainean zituzten etsaiak, eta, armak **arrapataka** harturik, beren buruak defenditzeko ahaleginak egin zituzten arren, alferrik izan zitzaien egindakoa. Felipe Juaristi

Musikariak, ordea, asegaitz, **arrapataka** igo ziren oholtzara, alkatea jaitsi ondoren, eta han kabitu ezinik, musika jotzeari ekin zioten, ordenarik gabe. Felipe Juaristi

Brusa grisa janzteko, **arrapataka** ibili beharra; erloju aurrean, bultzakada artean fitxatzea; makinaraino arrapaladan joan beharra; hura martxan jartzea; daratuluaz zuloa ahalik eta azkarren egitea; zuloak egin eta egin, beti zulo bera pieza berean; hamar mila aldiz egunean, ahal izanez gero. Eskarne Mujika

Zer lohi horri begira nagoela, bestelako goragale bat etorri zait eta **arrapataka** irteten naiz sukaldetik. Eskarne Mujika

Emakumeek, iraganeko izualdiak urdaila burua bezain huts utzi izan balie bezala, **arrapataka** jan dute aurrean ikusitako guztia, mugimendu mekanikoz, automaten gisara. Felipe Juaristi

Horregatik ibiltzen zen beti **arrapataka** eta garaiz heldu gurarik, epe jakinean egin behar genituen egitekoak, ez bakarrik bihotza, eskuak ere asmo onez beteta. Koldo Izagirre

Bere kasa kendu zion papera fardelari **arrapataka**, eta hatzak gora eta bera lerratu zituen ehun sarriko arropan eta aurpegiraino altxaturik musukatu egin zuen. Mirentxu Larrañaga

Toaila bat jantzien gainean zabaldu zuen eta gainean eskuilak, ispilu bat, txapinak, alkandorak eta hauts-poteak pilatu zituen **arrapataka**. Lopez de Arana

---

arrapatu ik **harrapatu**.

---

arrapikan ik **errepika 9**.

---

arrapikatu ik **errepikatu**.

---

arrapixkolatu, arrapixkola(tu), arrapixkolatzen *ipar* suspertu, bizkortu, indarberritu.

Ebakuntza (operazione) handi elibaten ondotik, lazgarri ahültürik, emeki-emeki **arrapixkolatzen** ari zela üdüri züan, süpermerkatüko bidea berriz hartürik, bena bihotzeko joandüra batek eraman dü bat-batetan. Herria

Arrapixkolatu arte egon ziren Maggy eta Janina atsotzar kurkuilatuaren txabolan. Itxaro Borda

arrapizte *iz ipar* berpiztea.

Arrapizte bat. Herria

Zer erran, oro har, Angeluko Trofeokotz jokatu partida horietaz, aitzinean Garaziko finalarekin bururatua zenaren ondotik? Halako **arrapizte** bat eskatzen diotela pilotari holako kiskiti-kasketek, bainan ez dutela auziek eta tribunalek xurituko gure pilotaren egiazko eritasuna. Herria

Hor izan dute **arrapizte** bat parioek baina ainitzek konprenitu zuten Biscoubyren jo ederrak eta Larrechearen aztaparra ez zirela aski izanen irabazteko. Herria

Bainan bada orai **arrapizte** bat, ikastolek eta ez bakarrik heiek, erakunde askok: Euskal Kultur Erakundeak, Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaindiak eta beste askok ere gaitzeko indarra egiten dute alde hortarat. Herria

---

arrapiztu, arrapitz, arrapizten du *ad* berpiztu.

Oinazea, azken minutuetan bertze topaketa alaiagoaren menturan lekutua zitzaidana, ausikika lotu zitzaidan buru barnetik, eragilea -eskua nahiz tresna- ezagututa **arrapiztu** balitz bezala. Aingeru Epaltza

Donostiako harresiaren eraisketakoan, Putzu kaleko neure gelatik ikusitako gertakariaren irudiak **arrapiztu** eta pilatu egiten ziren nigan. Txillardegi

Izar batzuk hasiak ziren arrastiriko zeru nabarra zulatzen; itsasoak, doi bat asaldatua, olio kapa zabal baten dirdira opako eta astuna zeukan; farola birakari bat piztu berria zen ene eskuinera, ondoko lur-muturrean; distiratzen zuen, gero itzali, gero tanpez **arrapiztu** eta argi izarniatsu bat jaurtitzen zuen, ostertzaren beste muturrean lanbrotan dirdiratzen zuen Sirio eternalaren aurka egin nahi izan balu bezala. Koldo Izagirre

Galdegiten dute herriak behar dena egin dezan, kirol gune hori **arrapitz** dadin. Herria

Hiru-lau arnasaldi, agentziara sartzean nekarren argitu beharraren sua **arrapizteko**. Aingeru Epaltza

Hain zuzen, neure barruan **arrapizten** ziren irudiak eta usain-aztarnak hobeki dastatzekotan, bi begiak hesten nituen, eta bi belarriak gortzen Txillardegi

---

arrapo *iz* bitsa.

Estekatu gizonen aurpegi izugarriak datozkizu oroimenera, beren ezpainen inguruko **arrapo** zuri-zuria, klun itxura ematen ziena. Xabier Montoia

---

arraposki *adlag ipar* presarik gabe, lasai.

Arraposki beztitu zen. ez sobera barna joan, ibil **arraposki**, ezagutzak polliki-polliki eginez. Janbattitt Dirassar

Puska fina behatz artean bihikatuz, egongelara **arraposki** joan eta ihardesgailuan mezu bat neukalako jabetu nintzen: [...]. Itxaro Borda

Larrua **arraposki** jo zuten. Itxaro Borda

Urrina barreiatu nuen zartaginean, baratxuriak bipildu eta **arraposki** moztu. Itxaro Borda

Arraposki hurbildu nintzaion galdezka, ongi ikasi izatearen erakaspen soilak zangopilatuz: [...]. Itxaro Borda

-Ni ere bizkaitarra naiz -esan du orduan beste batek, **arraposki** baina ozenki- eta errespeturik handienaz entzun ditut borrokakidearen hitzak. Txillardegi

---

arraposkitze *iz* presarik eza.

Gehiago xahutzea diru sartze gutiagorekin, hori ez baitu nornahik egiten! Edo behar da eskugain handia segurtatua bainan gobernua ez omen da batere hortan, jazko eskugaina jana eta aurten ez muntatua eskugain handirik, ekonomia sailean ere naski halako **arraposkitze** bat badela... Herria

---

arrapostu 1 *iz* erantzuna.

Eta egun batez, goizeko ibiltokian nintzelarik norbaitek eman zidan **arrapostu**: Gora Euskal Herria! Filipe Bidart

Gazteak, hasperen eginik, **arrapostua** eman zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Haren itaunak ere **arrapostua** izan zuen Josu R-ren ahotik: [...]. Pedro Alberdi

-Gaur berton -izan da **arrapostua** -. Txillardegi

"Garajean", mutikoaren **arrapostua**. Patxi Zubizarreta

Ahots zakarrez eman zuen **arrapostua**: [...]. Patxi Zubizarreta

Ezezkoa jaso zuen **arrapostua**, eta gainera, ez zuela uste laster batean etortzekoa zenik, botika itxi ostean betebeharrekoren bat izan behar zuela kanpoan, afaritarako iritsiko ote zen duda egin baitzuen. Josu Landa

Ahmed Rashafik emango dio, pisuan pilatutako inmigranteen aldetik, **arrapostua**. Iban Zaldua

"Zer dakizu zuk?", amaren **arrapostua**. Xabier Mendiguren Elizegi

Madnerrek **arrapostu** egin zion, berba egin behar zutela lehenbailehen bizirik zeudenekin. Lutxo Egia

-Abasek **arrapostu**, eta segidan alde egin zuen. Patxi Zubizarreta

-Ta? -Jefeak **arrapostu**. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ez zakiat -hark **arrapostu**. Joxe Austin Arrieta

-Batzuek apenas dakigun erdaraz ere -**arrapostu** Xerealek ondotik. Iñaki Iñurrieta

Ea zer nekien nik loreez egin zidan **arrapostu**. Ramon Saizarbitoria

Bi kurrinka ukan nituen **arrapostu**, eta hortan kito. Marzel Etxehandi

Arrapostuak zurturik eta ahoa bete hortz utzi zuen semea. Patxi Zubizarreta

Orduan besteak **arrapostu**: "Ez haizala kexa! Ez duk egia bezalakorik: hola hola biziki ontsa hiz!". Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Danak ez, Antton -Ixaskunek **arrapostu** -. Txillardegi

Kalonjeek **arrapostu** baizik eta ez zutela nehondik ere holako sos alderik biltzen ahalko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Eta zer da, ba, koadroan ez dagoena? -galdetu zenion, jakinik ez zegoela inon horretarako **arraposturik**. Hasier Etxeberria

Horra Arbelbideren gustuko **arrapostua**. Xipri Arbelbide

Bereziki gutunaren erantzun baten bila ari zelako, zuzenean egin zizkion **arrapostua** eskatzen zuten zenbait zehaztapen. Joxemari Iturralde

Guardiako zen batez, itzal bat ikusirik galdegin du ezagut-hitza eta **arraposturik** ez ukanik, tiratu. Piarres Aintziart

Desagertu egin zen, porlan zabaleko putzuak eguzkipean desagertzen diren bezala, **arraposturako** aukerarik eman gabe. Lander Garro

2 (izenondoekin)

Batetik nahiz bertzetik, **arrapostu** etsigarriak zitzaizkion itzultzen. Aingeru Epaltza

Arrapostu zuhurra, edozein gauza adieraz zezakeena, eta sinesgarria ere bai. Aingeru Epaltza

Denbora apurraren buruan miretsi ahal izan zuten, eta oraino oroitzen dira haren **arrapostu** metaforikoaz: [...]. Itxaro Borda

Arrapostu xuxenena hori baita! Janbattitt Dirassar

Hau izan zen **gizonaren** arrapostu ozena. Xabier Olarra

Parisko kaleetan zehar paseatu ginen besotik hartuta eta afalondoan etorkizunaz mintzatu nintzaionean zinezko **arrapostua** eman zidan. Iñaki Zabaleta

Ezustean bildua, ez nion berehalako **arraposturik** eman. Aingeru Epaltza

3 (aditz gisa) erantzun.

-Ez duk harritzekoa, hor barruan dozena erdi bat baxoerdi jo ditiagu-eta -**arrapostu** zion Orrondok alaiki-. Pedro Alberdi

Edo bestela bihar -**arrapostu** zidan berak arrantzaka. Pedro Alberdi

; orduan nik, miserableki, hori aldez aurretik erabaki behar zela **arrapostu** nion. Iban Zaldua

Ezetz **arrapostu** nien, kolarreta pasatzeko nahi bazuten, otzaratik irteterakoan biluzia nintzela. Koldo Izagirre

Hizketan jardun eta jardun aritzeko tresna da motoa daramanarentzat; atzekoak ezin du alde egin, ezin du **arrapostu**. Pako Aristi

Andrea, nor zara zu, eta andreak **arrapostu**, onez, Ni Amabirjina naiz, eta agintzen dizut Resendeko kontseiluan dagoen Carquerera joateko. Jon Alonso

4 ***arrapostu egin***

Madnerrek **arrapostu egin** zion, berba egin behar zutela lehenbailehen bizirik zeudenekin. Lutxo Egia

Agatak apalki **arrapostu egiten** zion, Louisek jasan zezakeen Arbideko euskalki tinkoa ahalik hurbilena marmaratzen saiatuz. Itxaro Borda

5 ***arrapostu eman***

Haurren artean egon dira gure bi gizonak eta segur galdera hanitzer **arrapostu eman** behar izan dute. Herria

Buraso, animatzaile eta hautetsi zenbaiten arteko informazio bilkura hauetan galdera eta arrangurer **arrapostu emanen** dute antolatzailek. Herria

-Haren jokamoldea -**arrapostu eman** zion polizi buruak-erbesteratuen lege bereziei beti men egiten dien gizonarena da. Karlos Zabala

Eta Um Hamidak, lokien zuria nahigabeetatik ez zetorkiola jakinik, **arrapostu eman** zion. Patxi Zubizarreta

Eskua Kamilenetik bazterturik, **arrapostu eman** zion. Patxi Zubizarreta

"-Ene galdeeri **arrapostu eman** nahi duka? -Ez! Ez, Frantsesa nizelakotz eta Frantses batek ez baititu lagunak saltzen. Michel Oronoz

Delako galderari nik baizik ez niezaiokeen **arrapostu eman**. Aingeru Epaltza

Hura ez zela amnistia, **arrapostu ematen** genien barkamen neurri haiek defenditzen zituztenei. Jokin Urain

Gabinek hitzon kontra oldartzeko bulkoa sentitu zuen, **arrapostu eman** nahi zion Enrikeri, baina zer erantzun asmatu ezinik geratu zen. Iñaki Iñurrieta

Horri ez dakit zer **arrapostu eman** ... Menane Oxandabaratz

Orduan egunero, goiz eta arratsaldez, ene kantua gero eta gorago emaiten hasi nintzen ibiltokian, euskaldun batek entzunen zukeelakoan eta ene kantuari **arrapostu emanen**. Filipe Bidart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrapostu bat (8); **arrapostu baten** (4); **arrapostu edo** (3); **arrapostu eman zion** (3); **arrapostu nion** (4); **arrapostu ona** (4); **arrapostu zidan** (3); **arrapostu zion** (5); **arrapostu zuen** (3); **du arrapostu** (3); **hark arrapostu** (3); **hunek arrapostu** (3); **zidan arrapostu** (4); **zuen arrapostu** (3)

arrapostua beti (3); **arrapostua eman zion** (6); **eman zuen arrapostua** (3); **haren arrapostua** (3); **zion arrapostua** (4)

arraposturik eman (6); **arraposturik ez** (5); **arraposturik gabe** (3)

---

arrarazi, arraraz, arrrazten du *ad* aritzera behartu.

Galderak behar dira egin eta industria saila garatu behar da, enpleguaren sortzeko eta eremu hunen biziarezteko zuzentasunez ez eta jendea lanean **arraraziz** 2 edo 3 hilabete urtean. Herria

Etxalde hartan bizi zen bikote xaharrak lur sagar haiek erre zituzten bortxaka lanean **arrarazi** zituzten preso haiek jan zitzaten. Eneko Bidegain

Urrats ona da lan horietan **arraraztea** gure gazteak, zeren erakutsi behar baitzaiote laneko gostua eta gehiago dena bakantzetako denboran horien okuparaztea ez baita lan txarra. Herria

Eta hori aski ez bazen, esklaboak lanean lasterrago **arrarazteko**, adreiluak botatzen zizkien burutik beheiti edota bizkar gainera. Eneko Bidegain

B.-koek gomitatzen ahal eta bertzaldetik berezkoek pilotan **arrarazten** ahal egun berean ezagutzen duzun mementoko giroan. Herria

Goizean irakurri dut Jorkaeff -Pariseko jokolari hori biziki maite dut, mutiko hura; haren artzeko manera eta nola besteak lanean **arrarazten** dituen... - eta erran du partitzen dela beraz, eta joanen dela Milan AC-rat, eta Parisek ez zitzakola ematen ahal okasione hortan irabazten ahal duen dirua. Menane Oxandabaratz

Ainitz sari irabazteko aukera ederra da hemen, tokiko saltegiak lanean **arraraziz**. Herria

---

arraro *(ETCn **19.684** agerraldi; orobat **arrado** g.er.)* **1** *izond* bakana; bitxia. ik **estrainio**; **harrigarri**.

Gauza **arraroak** ikusi nituen han eta ez nuen ezer konprenitu. Hasier Etxeberria

Laster zerbait **arraroa** nabaritu nuen: lagunaren zakilburua estaltzen zuen azala ezin nuen atzeratu zakilburua miazteko. Aitor Arana

Egongelaren erdian, aita bioi begira, zerbait **arraroa** gertatzen delako errezeloaz. Anjel Lertxundi

Badira horrela zenbait frantses hiritar Luzaidera etorri zirenak denbora batez, nork daki zein arrazoinengatik? Gerlatik ihes? Lan bila? Badakigu eliza egile **arraroak** zirela frantses harginak eta Ipar Espainian anitz eraiki zituztela gotiko estiloan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hamazazpigarren jokaldian, jokalari errusiarraren zaldi zuri batek atzeranzko jauzi **arraro** bat egin zuen. Alberto Ladron Arana

Gomezek modu **arraro** baten torneoa hasi bazuen, bukaera ez zen gutxiagorako izan. Berria - Kirola

-Zerbait **arraroa** susmatzen hasi beharko dut -aitortu zuen Amaiak. Fernando Morillo

Etxekoandre gehienek sentsazio **arraroak** eragiten zizkioten. Jasone Osoro

Gehienek oso aurpegi **arraroa** ipini dute galdera entzutean. Jon Arretxe

Une batez isilik egon ginen autoaren argiak itzalita, ezer **arrarorik** entzutekotan... Inazio Mujika Iraola

Peterren aurpegian irribarre **arraro** bat marraztu zen, eta Wendy dardarka hasi zen hura ikusita. Julen Gabiria

Izan ere, haurrak hiltzeko zeremoniak nahiz ezkutuko erritoak edo ohitura **arraroetako** orgia basatiak eginez, Elizen arteko biblia

Bizio, behar, plazer, sufrimendu **arraroa**, besteekin komunikatzeko premia, nartzisismo forma bat, bizitza ikusteko eta sentitzeko modu pertsonal eta diferentea izatea... Ana Urkiza

Erakundetik bota izan arren, Frantzian errefuxiatu gisa bizi zen nortasuna faltsutuz, eta hiriko ATEko komisario politiko alta zorrotzak ez zuela deus **arrarorik** asmatu, koordinakundearen batzarretan parte hartzen zuen. Itxaro Borda

Momentu **arraroak** izan ziren, denboraren kontrakzio bat bezala, akorduan dut enarak zebiltzala uda hasierako aire gardenean gezien moduan. Joseba Sarrionandia

Anartean, Pariseko gure teknokratek Iparraldeko euskaldunei "herri" izena eskaini ziguten, pays Pays Basque formula **arraroa** asmatuz. Piarres Xarriton

Goizean goiz esnatu ginen, batere lorik egin gabe, narratsa zen benetan taberna hura, leku **arraroa**. Pako Aristi

Eskaintza haren atzean ezer **arrarorik** ez zegoela pentsatzera iritsi nintzela uste dut. Alberto Barandiaren

Esan dizut, jakiteko ea zeozer **arraroa** idatzita ikusi zenuen gelditu zinenean, besterik gabe. Koldo Biguri

Ohartu ziren, halaber, hiltzen zen jendeak defentsak modu **arraroan** gutxituta zituela. Luis Elberdin

Althuserren liburu **arraroren** bati ere heldu nion garai hartan, baina nahiko zaila egin zitzaidan. Rafa Egiguren

Motorraren hotsari belarria zoli jarriz gero, ez genioke deus **arrarorik** erreparatuko; furgonetak, izan ere, berrikitan gainditu du IAT delakoa, hots, ibilgailuen azterketa teknikoa. Josetxo Azkona

Munduko lore ederrenak dira han heltzen eta xori **arraroenen** txistuak entzuten. Aurelia Arkotxa

Hortaz, herri etimologia, egoera jakin batzuetan bakarrik gauzatzen da, eta hiztunek oker asimilatzen dituzten hitz **arraroak**, tekniko zein atzerrikoak, dira, bakar-bakarrik,

herri etimologiaren eragina jasaten dutenak. Isabel Arrigain

Neska oso **arraroa** zen, oso goxoa... Xabier Paya

2 (erkaketetan)

Baina, zakurrak ez du deusen kulparik, eta esan liteke, gure bizitza haizazu hau bera, puzker bat bezain **arraroa** eta pasakorra dela. Patziku Perurena

Han ere behi eta zezen batzu, ederrenetarik eta nola egon goresmen berezi bat eskaini gabe Heleta Agerrekoeri, hamabostgarren urtea segidan han direla, hori baita gauza bat **arraroa** baino **arraroagoa** ...! Herria

Ez zaude gaizki egina, ez zara beste inor baino **arraroagoa**. Luis Elberdin

-Eta, noski, nik banekien zu ere berdina izango zinela, haiek bezain **arraroa**, haiek bezain... anormala... eta gero, ordu artekoa gutxi bailitzan, amak bere burua lehertarazi zuen, eta guk hartu behar zu! Iñaki Mendiguren

Asko, Severus, zein baino zein **arraroagoa**. Iñaki Mendiguren

Ohi baino ere **arraroago** esan nahi duzu? Iñaki Mendiguren

Lehengoan hor dendan, nongoa naizen galdetu zidaten, Iparraldekoa erantzun nuen, eta Ipar aldekoa, a ipar aldekoa, esan zuen dendariak itsasora begira, nire euskara islandiera bezain **arraroa** balitz bezala. Joseba Sarrionandia

Gutariko edonork zauzkan bere jaidurak eta bere gurariak, batzuk besteak baino **arraroagoak**. Joxemari Iturralde

• **3** (predikatu eta adizlagun gisa)

Botak **arraro** eta astun sentitzen ditut oinetan. Mirentxu Larrañaga

Ez zaizue **arraroa** egin izanen Sam bidaltzea zuek nire festara gonbidatzeko? Fernando Rey

Oso **arraro** zabiltza aspaldi honetan, badakizu? Ezerk ez zaitu pozten. Patxi Iturritegi

Arraro hitz egiten dik. Anton Garikano

Ziegan ibiltzen saiatu zen, eta **arraroa** zen ibiltzea. Jose Morales

Kapituluen ordena **arraro** samarra da. Xabier Kintana

-Bide batez, Uriarte, zera - **arraro** egin zitzaidan hari nire abizena entzutea-, gaur gauean hire Sailean lo egin beharko duk. Edorta Jimenez

Esaten zuten drogatuta nengoela, **arraro** samar janzten nintzela. Javi Cillero

Ez nintzen **arraro** sentitu, denboraldi-aurrean ere jokatu nuen-eta, baina askotan goraka joan gura nuen, eta neure buruari esan behar izaten nion atzean gelditzeko, ohitura faltagatik. Berria - Kirola

Beldurra, pena edo sufrimendua baino sentimendu konplexuagoak zerabiltzan nonbait barrenean, eta goizean, lanera joan aurretik, parketik ohiko itzulia egiteko zakurrari deitu zionean honek **arraro** begiratzen ziola iruditu omen zitzaion, zakurra bera ere errukia edo gupida sentitzeko gai izango balitz bezala. Joxean Agirre

Zuretzat ez da oso gogorra, Londresera heldu zarenetik Guggenheimen gaineko istorio mordoa entzuten ohitu baitzara, baina otu zaizu apur bat **arraro** gerta dakiekeela bizitzen luze daramatenei. Lutxo Egia

Erizaina frantsesa zen - **arraro** gertatzen zena. Marzel Etxehandi

Baina oso **arraro** sentitzen zen, tentel, "denbora galtzen" egongo balitz bezala. Luis Elberdin

4 *gaixotasun arraro*

Pertsona gutxi batzuek garatzen dituzten gaitzak dira **gaixotasun arraroak**. Berria - Gaiak

Denok dakigu gizonek **gaixotasun arraroa** daukatela atzamarretan eta horregatik ez direla gai andra bati deitzeko. Sonia Gonzalez

Euren lau urteko semeak odoleko **gaixotasun arraro** bat zuen. Berria - Gaiak

Ordura arte sekula arazorik izan ez zuenak **gaixotasun arraroa** izan zuela, bitamina misteriotsu batzuk hartuz hasi omen zela, bolo-bolo zabaldu ziren esamesak, inork ez jakin nondik eta nola. Joxemari Urteaga

5 *gas arraro*

Gas noble esaten zaie, orobat, eta eztabaidatzekoa litzateke ea benetan noble guztiak diren geldo eta geldo guztiak diren noble; **gas arraro** ere esaten zaie, azkenik, nahiz haietako bat, argoi delakoa, "Eragingabea", ehuneko baten proportzio ez batere eskasean sartzen den airearen osaketan. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argazki arraro (3); **arraro asko** (4); **arraro bat** (108); **arraro bat bezala** (3); **arraro bat egin** (10); **arraro bat izan** (5); **arraro bat ukan** (3); **arraro batean** (15); **arraro batek** (10); **arraro batekin** (8); **arraro baten** (11); **arraro batez** (6); **arraro batzu** (4); **arraro batzuk** (6); **arraro begiratzen** (4); **arraro edo** (4); **arraro egin** (3); **arraro guztiak** (4); **arraro haren** (5); **arraro hark** (3); **arraro hartan** (4); **arraro hau** (3); **arraro hitz** (5); **arraro hitz egiten** (5); **arraro hori** (6); **arraro horiek** (3); **arraro horren** (3); **arraro hortan** (4); **arraro hura** (13); **arraro ikusten** (3); **arraro izan** (3); **arraro jokatzen** (3); **arraro samar** (19); **arraro samar sentitzen** (4); **arraro samarra** (30); **arraro samarra da** (6); **arraro samarra izan** (3); **arraro samarrak** (5); **arraro sentitu** (7); **arraro sentitzen** (10); **arraro sentitzen zen** (3); **arraro xamarra** (4); **egun arraro** (4); **era arraro** (5); **era arraro batean** (4); **erakusketa arraro** (3); **gau arraro** (4); **gauza arraro** (23); **gauza arraro bat** (6); **gauza arraro guztiak** (3); **gertaera arraro** (3); **gertakari arraro** (4); **giro arraro** (6); **gizon arraro** (7); **hitz arraro** (8); **hizkuntza arraro** (6); **hots arraro** (7); **hots arraro bat** (5); **ikusgarri arraro** (3); **irribarre arraro** (3); **istorio arraro** (3); **izen arraro** (3); **keinu arraro** (4); **keinu arraro bat** (3); **leku arraro** (4); **liburu arraro** (5); **modu arraro** (6); **musikaldi arraro** (3); **musikaldi arraro bat** (3); **oso arraro** (19); **oso arraro hitz** (3); **oso arraro sentitzen** (3); **pertsonaia arraro** (3); **sentipen arraro** (3); **sentsazio arraro** (5); **sentsazio arraro bat** (3); **soinu arraro** (4); **urduritasun arraro** (3); **zarata arraro** (4); **zerbait arraro** (11)

amets arraroa (4); **arraroa bada ere** (5); **arraroa badirudi ere** (5); **arraroa baita** (4); **arraroa da** (85); **arraroa egiten da** (3); **arraroa egiten zaio** (3); **arraroa egiten zait** (6); **arraroa ematen** (3); **arraroa gertatzen** (11); **arraroa iruditu** (18); **arraroa iruditu zitzaion** (4); **arraroa irudituko** (4); **arraroa iruditzen** (14); **arraroa iruditzen zitzaidan** (3); **arraroa izan** (47); **arraroa izan arren** (3); **arraroa izan da** (15); **arraroa izan zen** (11); **arraroa izango da** (3); **arraroa izaten** (7); **arraroa sumatu** (7); **arraroa sumatzen** (4); **arraroa zegoen** (4); **arraroa zela** (11); **arraroa zen** (50); **aski arraroa** (3); **aurpegi arraroa** (5); **bai arraroa** (6); **baina arraroa egiten** (3); **batere arraroa** (10); **bezain arraroa** (5); **bitxia eta arraroa** (3); **egoera arraroa** (4); **egun arraroa** (3); **erakusketa arraroa** (6); **ez da arraroa** (30); **ez litzateke arraroa** (4); **ez zen arraroa** (6); **ez zitzaion arraroa** (3); **gauza arraroa** (21); **gauza arraroa da** (3); **gauza arraroa zen** (3); **gertakari arraroa** (3); **giro arraroa** (8); **giroa arraroa** (4); **hain arraroa** (19); **hori arraroa** (4); **horren arraroa** (3); **ikusgarri arraroa** (4); **itxura arraroa** (3); **izugarri arraroa** (3); **kantaldi bat arraroa** (3); **leku arraroa** (3); **nahiko arraroa** (6); **oso arraroa** (49); **oso arraroa da** (15); **oso arraroa egiten** (3); **oso arraroa izan** (6); **oso arraroa zen** (6); **oso gauza arraroa** (3); **partida arraroa** (5); **partida arraroa izan** (3); **sentipen arraroa** (4); **sentsazio arraroa** (4); **tipo arraroa** (3); **toki arraroa** (6); **urtea arraroa** (3); **usain arraroa** (7); **ze arraroa** (6); **zein arraroa** (5); **zeozer arraroa** (4); **zer arraroa** (7); **zerbait arraroa** (41); **zerbait arraroa ari** (3); **zerbait arraroa gertatzen** (7); **zerbait arraroa ikusi** (4); **zerbait arraroa sumatu** (6); **zinez arraroa** (8)

are arraroagoa (3); **baino arraroagoa** (3)

gauza arraroagoak (4)

aski toki arraroan (3); **era arraroan** (3); **modu arraroan** (9); **oso modu arraroan** (3)

gauzarik arraroena (3)

---

arrarokeria *iz* arraroa denaren nolakotasuna, gaitzesgarritzat hartua.

Ez dut ukatuko, zurubiaren ondoan aurkitu nuen pertsonaren begitarte zital hura gogoratuz, ez nuela desirarik batere izan une hartan ardura kaltegabea, ez behintzat **arrarokeria**, iruditu zitzaidan hari kontra egiteko. Koro Navarro

Gorputzaren gelditasun erabateko, luze eta tematiaren bidez mugimendu edo izate fisikoaren zentzuak oro galtzea: halakoxeak ziren **arrarokeria** arrunt batzuk, ez kaltegarrienak, antzekorik izan den arren ezin analiza edo esplika daitekeen adimenaren ahalmenen egoera batek sortuak. Koro Navarro

-Hori **arrarokeria**! Koro Navarro

---

arraroki nola *adlag* era arraroan, bitxiki.

Aste batez errezebituak izan gira "Au Lion d'Or" kabaretean ikusgarrien segurtatzeko; horri lotua den "Le Petit Extra" ostatuan aldiz euskal mozkinak **arraroki** prestatu dituzte Antxon, Mixel eta Therese-k. Herria

Zarata **arraroki** temati eta gogaikarria zen, halako soinu-laguntza gaizto bat bestela ere xelebrea eta agian inoiz gertatu gabea zen egoera zail baterako. Oskar Arana

Baina Tomek, artagabekeria une batek **arraroki** erasota, Vermonterako gure bidaia hurbil-hurbilaren berri jaulki zuen bat-batean, denok mahaian eseri eta minutu gutxira. Oskar Arana

Loguraz dago, aseta: eta babesle ere sentitzen da, **arraroki**. Oskar Arana

---

arrarotasun *iz* arraroa denaren nolakotasuna.

Beraz, bere bakantasuna eta **arrarotasuna** jagon nahi dituenak, hobe du abestea edo dantzatzea. Markos Zapiain

Halako batean, aurkikuntza agian erabakigarriena egin genuen, hots, normalean hitz egiten genuen hizkuntzarena, eta bere **arrarotasunaz** ohartu ginen, bere balioaz. Bernardo Atxaga

Bizitza ederra zela iruditzen zitzaidan bat-batean, eta ideia honek, **arrarotasunagatik**, barregura ere ematen zidan; barregura zoriontsua, nolabait adieraztearren. Bernardo Atxaga

Adinean aurreraturik, ordea, ez zuen eragozpenik jarri kristau mediku zahar bat, bizar-handios eta gogoiluna, senartzat hartzeko, eta orduz geroztik zekenkeriara eta **arrarotasunera** makurtuz joan zen. Juan Garzia

Biografiari eta Historiari buruzko Hiztegi Orokorra, Mitologiari buruzkoa, Antzinako eta Gaurko Geografiari buruzkoa, Antzinako gauzei buruzkoa, eta Erakunde Greziar, Erromatar, Frantziar eta Atzerritarrei buruzkoa, **Arrarotasun**, Itxuragabetasun eta Bitxikeriei buruzkoa ahaztu gabe. Jon Alonso

---

arrarotu, arraro(tu), arrarotzen da *ad* arraro bihurtu.

-Aski **arrarotua** zen gure bereizketaz geroztik, eta banekien gaitz zitzaiola Ximurrarekikoa. Aingeru Epaltza

---

arrarotxo *izond adkor* arraro xamarra.

Askotxori **arrarotxo**, bestelako egingo zitzaien errezeloa nuen beti nirekin. Pello Zabala

---

arraroxko *izond adkor* arrarotxoa.

Arraroxkoa hau ere, ehorzketaren egun berean izaten baitira, baina tira. Aingeru Epaltza

Hori, gure artean, oro har **arraroxkoa** izaki, are gehiago bere anaiarteko jendeetan. Aingeru Epaltza

---

arras *(ETCn **19.684** agerraldi)* **1** *adlag* guztiz.

Skuludis jaunari **arras** desatsegina egin zitzaion eskaria. Anton Garikano

Manilov **arras** hunkiturik zegoen. Jose Morales

Eta **arras** gora sentitzen bazituen, ia ikus ezinean, orduan ziur erantsiko zuen: Enarak goian hara ta hona, luzaro eguraldi ona. Pello Zabala

Ardia ñapurra izateaz gain, **arras** neurastenikoa ere bazela froga nezakeen. Itxaro Borda

Ez, ez dira **arras** gauza bera, baina bai elkarren kontraispilu moduko bat, zeren, alde batetik, mitoa, funtsean, Eliadek eta erakusten zuten bezala, "egiazko ixtorio bat" da, egia da (erreala ez, baina egia bai), ulertzen dugu nola edo zergatik, baina errealitatearekin ez [...] Iñaki Segurola

Eta urtarrileko gau **arras** hotz batean Laugarren Kalearen eta B Etorbidearen arteko kantoian eztarriaren kontra pistola bat estutu zion crackzale hordi hitz-totelarengatik izan ez balitz, batek daki noiz arte iraungo ote zukeen ez aurrerako ez atzerako egoera hark. Oskar Arana

Arras arrunta zen. Ibon Uribarri

Ez naiz haatik **arras** bakarrik, biziaren gauzen erdian bazegoelakotz jendea: bospasei adiskide, egiazko haiek, tribuko kusiak, hain maitatuak, haurtzaroko jostetakide ahantzezinak, eta lankide bazterrezinak, errekontruzko ezezagunak. Piarres Aintziart

Gerra napoleonikoen ondoren lehia hau - eta izpiritu espainol jatorraren arazoa - biziki minberaz gain, katramila politiko-erlijioso-literario **arras** konplikatua bihurtu da: ideia liberalak, frantsesak ote? Joxe Azurmendi

Egun politak iragan zituzten elkarrekin, **arras** biziak eta, baita ere, zoro samarrak batzuetan. Migel Angel Mintegi

Beste askotan **arras** jende anonimoa dator, gehiago itzultzen ez direnak. Pako Aristi

Berari "aberriak" exijitzen ziona eta guri exijitzen diguna ere **arras** desberdinak dira. Joseba Zulaika

Faraoiaren zerbitzariek ere ikusi zuten Sarai eta Faraoiaren aurrean **arras** famatu zuten. Jose Antonio Mujika

Etxeko familia giroa **arras** hondatu bazen ere, Pirandellok hamazazpi urtez zaindu zuen emaztea etxean, idazle ospetsu bihurturik, hura barne-etxe batean sartzeko adina irabazi ahal izan zuen arte. Josu Zabaleta

Ideiak poliki-poliki hedatzearekin konparatuz gero, ziur nago sortutako interesen boterea **arras** exageratzen dela. Iñaki Heras

Badakit **arras** urrun nagoela atso zoro bat izatetik. Karlos Zabala

Bi egunetarik Kurutze Gorriak ekartzen zigun bizitzekoa, eta sukaldeko gure anai apezek **arras** ontsa bazekiten kozinatzen. Marzel Etxehandi

Ez zen hargatik herabetu faktura aurkeztean: larru ordainduaren alorrean ibiltzen diren prezioetatik goiti, **arras** goiti gero, pagatu nuen telefono zenbakia. Aingeru Epaltza

Hastapena bai, ezaguna duzu, baina ezezaguna duzu **arras** ibilbidearen hondarra. Filipe Bidart

Horren guztiaren berri izatean, haserre biziz suturik, bere erreinuko indar guztiak bildu eta gudaroste **arras** indartsua antolatzeko agindu zuen Antiokok. Elizen arteko biblia

Arras leku aberatsak dituk, ez dik ez beroegi, ez hotzegi egiten eta lekukoak jende ederrak dituk. Aurelia Arkotxa

Lehendik zuen hartua herioa inguruan zebilkiolako susmoa Wolfgang Amadeusek, ordurako gaixotasunak **arras** makaldua baitzen. Imanol Zurutuza

2 zerbaiten altuera berean.

Arotzak arkatzaz marka bat egin - honaino iritsi behar du auskalo zerk -, arkatza belarrian jarri eta eskailerako esku-karrila **arras-arras** lixatzen segitzen du, txirbil hautsa erortzearekin batera zuraren baitako begi batzuk itsutu eta barruragoko begiak eta korapiloak agerian utziz. Harkaitz Cano

3 ***arraseko mozketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

"Orain arte eguneroko gauza zen Txileko hegoaldean bertako oihana **arraseko mozketa** edo matarrasa sistemarekin botatzea, jatorrizko oihana erre eta ondoren radiata pinuz eta eukaliptok landatuz ordezkatzea. ETC-prentsa

Tarteka **arraseko mozketa** egin eta basoa erabat soiltzen zen. ETC-prentsa

Arraseko mozketetan, titularrak soildutako lurretako zuhaiztia 5 urteko epean lehengoratu beharko du, berezko birsortzea bultzatuz edo basoberritze artifizialaren bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 ***landa-arras***

Elkarrekin zeutzala, **landa**-arras, ehorztegi abandonatu bateko lauzen gainean. Juan Garzia

5 ***larru-arras***

Txibukia eskuan eta katilutik hurrupaka, oso irudi egokia zatekeen pintore batentzat, esan nahi baita, bizartegietako iragarkietan ikusi ohi direnen tankerako gizon ondo orraztuak eta kizkurdunak edo ilea **larru-arras** mozturik eramaten dutenak batere gogoko ez dituzten pintore horietako batentzat. Jose Morales

Begirada tolesgabea, aurpegi adoretsua, belarrondoko bizarrak eta bibote handi ileurdina, ilea **larru-arras** mozturik garondoan, lepo lodi zabala -hiru maila edo tolesturakoa esaten zaien horietakoa, zeharkako zimur batekin-, baxu-ahots apur bat erlastua, jeneral-mugimenduak. Jose Morales

Dotorea zuen hankarteko ilea, hitz egokiagorik ez dut aurkitu, sekula ikusi dudanik eta irudi abegikorrena, gogotik gustatzen zaizkit pubis iletsuko emakumeak, ez naiz ileak

larru-arras mozteko zale, ipar-ekialdean askok egiten duen bezala. Karlos Zabala

6 *lur-arras*

Txoria **lur arras**, uria laster has, halaxe zuen egutegi zahar batean ikasita. Pello Zabala

Lur-arras hegan, jirabiraka, garrasi erlastuak botaz. Jon Muñoz

Aurrekoetan bezala, ahoa **lur arras** jarrita egin diozu dei. Rafa Egiguren

Lur-arras berdinduxeak dirudite, orobat, hilek eta biziek, eta ustekabe galantak emango dizkio horrek irakurleari eta, haren bitartekari gisa, hasierako narratzaile Comalara etorri berriari. Juan Garzia

Horren **lur arras** ote nengoen ni, nire aurrean inork bere sudurra lotsarik gabe hustu zezakeela uste izateko? Joxan Elosegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

arras ados (7); **arras aldatu** (19); **arras alde** (7); **arras baikor** (10); **arras bakan** (9); **arras berezia** (24); **arras berotua** (8); **arras berotuak** (7); **arras berria** (9); **arras bestelako** (8); **arras bestelakoa** (9); **arras deliberatua** (8); **arras denbora** (8); **arras desberdina** (9); **arras desberdinak** (16); **arras ederki** (35); **arras ederki iragan** (13); **arras ederra** (9); **arras ederrak** (7); **arras egia** (10); **arras egokia** (9); **arras epe** (7); **arras epe laburrean** (7); **arras eri** (9); **arras ezaguna** (11); **arras ezagutua** (7); **arras ezberdina** (8); **arras ezberdinak** (20); **arras fleitean** (9); **arras gaizki** (23); **arras galdua** (8); **arras gauza** (13); **arras gaztea** (11); **arras gazteak** (7); **arras gazterik** (9); **arras gogoetatua** (7); **arras gogotik** (10); **arras gostukoa** (7); **arras goxoki** (12); **arras gustagarria** (7); **arras gustatu** (10); **arras gustukoa** (8); **arras guti** (38); **arras gutti** (7); **arras heldu** (10); **arras hola** (18); **arras hurbil** (26); **arras interesgarria** (8); **arras kexu** (13); **arras kontent** (18); **arras luzea** (7); **arras merke** (11); **arras minbera** (8); **arras molde** (8); **arras ona** (39); **arras ona izan** (8); **arras onak** (16); **arras ongi** (102); **arras ontsa** (25); **arras pixkor** (9); **arras polliki** (57); **arras pollita** (15); **arras pollitak** (7); **arras pozik** (10); **arras trenpuan** (7); **arras untsa** (10); **arras urrun** (9); **arras zaila** (7); **bazterrak arras** (8); **gauzak arras** (11); **haatik arras** (12); **jendea arras** (22); **jendea arras polliki** (9); **lur arras** (11); **nahiz arras** (7); **oraino arras** (42); **partida arras** (10)

---

arrasaldu, arrasal(du), arrasaltzen du *ad* berriro saldu.

"Mouguerre Choix de vie"-ren ustez Herriko Etxeak merkeenean erosiko du ontasuna, eta zatika **arrasalduko** bizitegiak eta lantegiak altxatuko dituzteneei. Herria

Bi hektarako lur peza, herriak erosia eta orai **arrasalduko** duena bizitegi horien denen eraikitzeko. Herria

Basses-Pyrénées hotela desagertuko zela idatzi genuen HERRIAn duela zenbait hilabete, apartamenduka **arrasaldua** izaiteko. Herria

Agertu xedeen arabera, erakundeak lur batzu har lezazke bere gain, lau urte barne berantenaz **arrasaltzeko** eraikuntza berri batzuentzat. Herria

---

arrasaltze *iz* berriro saltzea.

Arrasaltze horiekin berri lezake bere kutxako dirua. Herria

Bost miliun euro xahutuko ditu nunbait han orotarat eta dirualde bera altxatuko du lurrak **arrasaltzearekin** etxe-egileeri. Herria

---

arrasatear *izlag/izond/iz* Arrasatekoa; Arrasateko biztanlea.

Garibai herren utzi zuten pasadizo horretatik abiaturik, zer hobe Loiolako Inazio garaikidearekin paralelismo bat egitea baino **arrasatear** ikaslearen konbertsioa kontatzeko? Anjel Lertxundi

Azpeitiarra bata, **arrasatearra** bestea. Pako Aristi

Nabarmentzekoa da, jeltzalea izan arren, euskara batuaren aldekoa izatea eta, **arrasatearra** izanda -mendebalekoa, beraz-, euskara giputza hobestea. Koldo Zuazo

Egitasmo horren aldekoa izan zen, besteak beste, Jokin Zaitegi **arrasatearra**, Euzko-Gogoa aldizkariaren arduraduna. Koldo Zuazo

Multzo honetan sartuko nuke, era berean, Deba arroko euskararen argazki zehatz samarra erakusten duen Milia Lasturkoaren kantua, Garibai **arrasatearrak** XVI. mendean idatziz jarria. Koldo Zuazo

"Zenbat Garibai daude?", idatzi du **arrasateararen** biografoak oharren koadernoan. Anjel Lertxundi

Ezagutzak egin ditugu: bat Aretxabaletakoa da, beste biak **Arrasatearrak**. Piarres Aintziart

---

arrasatu, arrasa(tu), arrasatzen **1** du *ad* lur arras utzi, lautu; suntsitu.

Eritasunen eta hotzen gainera jateko eskasa eta edateko ur garbirik ez beti lurrikarak **arrasatu** dituen herri eta hirietan. Herria

Baina etsaiak ere araberakoak: orai, besteen gainera, badituzte larre-ote izurriteak, erantsia bezala erortzen direnak gainera eta denak **arrasatuz** iresten, lurraren bazka eta errekolta. Herria

Orduan nire izana zein izenak gorrotatzen eta murruak **arrasatzen** ditut, burua apal, hatsa labur eta begiak altzairu. Itxaro Borda

Horrek guziak egungo gizarte eredua dakar burura: bazter guziak, ezker eskuin **arrasatzen** dituen judumasoikeria, alegia. Patziku Perurena

Horrek guziak egungo gizarte eredua dakar burura: bazter guziak, ezker eskuin **arrasatzen** dituen judumasoikeria, alegia. Patziku Perurena

2 irud/hed

-Asier honek **arrasatu** egiten dik roilo txarrak montatzeko orduan! Pako Aristi

22-14, botez oro berdintsu, Larrechearen batzu taularat galtzen, azpiz **arrasatzeko** orde. Herria

Eta euskal literatura **arrasatzen** duen estiloa ez da horixe besterik: guziz Nietzschez bestekoa: altruista, ahultzailea, kristaua, protestantea, sozialista, faltsoa, kobardea... Patziku Perurena

---

arrasatzaile *izond* arrasatzen duena.

Brasilian Dorothy serora amerikar bat, hango jende xehe eta laborari lur gabeen adiskidea hil zuten laborari haundien eta oihanen **arrasatzaileen** aldeko tirokatzaileek, bazituelarik hogei urte oso emanak hango laborari ttipien alde. Herria

Judumasoikeria **arrasatzailea**. Patziku Perurena

---

arrasean **1** *adlag* altuera berean. ik **arrada**.

Zapelatz bat jan bila ari da elurraren **arrasean**. Jokin Muñoz

Deituriko txori asko Frantzisko zetzan etxeko teilatu gainean ibili ziren jira-biraka eta kantari, teilatuaren **arrasean** hegan eginez. Askoren artean

Espaloiaren **arrasean**, zenbait argizulo zeuden, burdin sarez babestuak, eta Claude haien gainean makurtu eta sotoen hondoetarantz begiratu zuen, non gas argi susmagarriak erretzen ari baitziren han-hemenka. Karlos Zabala

Halaber, bizarra moztu gabe uzten zuen, iduriz guti artatzen zuen larruaren **arrasean**. Elena Touyarou

Eguzkiak, teilatuen **arrasean**, izpi arrosak jaurtitzen zituen, eta zolako harrietaraino iristen ziren, mihise zeihar batzuen pare. Karlos Zabala

· Ondoren, osorik moztu zituzten kanpora ateratzen ziren habeen irtenguneak, paretarekin **arrasean** eta perpendikularrean hartuta. Santiago Iruretagoiena

· Zelai-**arrasean** lanbro zurixkak limurtzen dira, beharbada mamu ilaunak ezkutatzeko. Itziar Otegi

2 azalaren altueran.

Aurpegia eguzkiak erre-zaildua, bekokia mehar ile lerroaren azpian, ileok labur-labur eta **arrasean** moztuak: baserritarraren jitea zuen ibileran, urrats luze astitsuz. Juan

Garzia

3 *lur arrasean* lurraren altuera berean.

Arma automatikoetakoren batek doiegi tirokatzen zidala iruditzen zitzaidanean, haren gainera jotzen nuen, albait lasterren, lur **arrasean**, eta metrailadore turrusta bat botatzen nion. Josu Zabaleta

Kirats arina artean, hezetasun sunda gozoa bezain higuingarria, lur **arrasean** arrastaka zebilena. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lur arrasean** (7)

---

arraseme *iz* gizonezko biloba. ik **arralaba**.

Dena dela, 990. urte üngürüan sortürik, Antso Abarka famatüaren **arraseme** da gure Antso: 1004. urtean galtzen dü bere aita. Herria

Bainan zoaz esplikatzera zure semeari edo **arrasemeari** ez direla holako hitzak erran behar. Herria

---

arrasetik *adlag* gainazalaren altura beretik.

Eta, halaxe, zenbait pinuren adaburuak, harkaitzaren gandorretik gora ateratzen zirenak, moztuak izan ziren begi itxi-ireki batean, izugarrizko igitai batek ezponda **arrasetik** garbitu izan balu bezala. Karlos Zabala

Hau ez dea preseski orduan lotu, harra bezala, batean bote bizia **arrasetik** (sei hor berean) eta bestean eskuineko xoko hura mia (beste hiru hor) eta ez dea ttipia, berdindurik, aintzinerat ere pasatu (13-12)! Halere, aldiz gure jauna zaldiz, horra berriz xapeldunaren oldarra eta hau aintzinean du egundainotik, 26-17 eta 31-26. Herria

---

arraska ik **harraska**.

---

arraskatu, arraska, arraskatzen du *ad* hatz egin, igurtzi.

Barrualdea gau batez zopa-zopa utzi eta **arraskatuz**, margo gorrixka ematen dizu. Pello Zabala

---

arraso[1] *izond* leuna.

Eta gizatxar digantez mukuru dagoen lurgainean atseginik aurkitu ezinik, Goizuetako idazleak "gizatasun txipiko" erakunde, politika eta bizimodu arrotzen salaketa **arrasoa** egin digu artikuluotan, besteak beste eta beste behin, soka bereko idazlanak jaso baitzituen lehenago Zurian Zirika eta Etorrerakoak izeneko bildumetan. Patziku Perurena

---

arraso[2] *adlag* arras, guztiz.

Ohartu nintzen nire barruko zulo batek **arraso** xurgatu zidala dena. Alberto Barandiaren

Guti faltan ez duk **arraso** garungabetu. Aingeru Epaltza

Eruditoak, funtsean liburuak nahasberritu besterik egiten ez duenak, atzenerako **arraso** galtzen du bere buruz pentsatzeko gaitasuna. Patziku Perurena

Justizia izeneko fulana diktadorak bahitua daukagu **arraso**. Patziku Perurena

Agorrarenak inon betetzen ote dira total eta **arraso**? Pello Zabala

---

arraso[3] *adlag* aire zabalean.

Gero eta gutxiago dira lur zoru gainean, **arraso** bertan etzanda lo egiten dutenak. Pello Zabala

---

arraso[4] *adlag* ilea motz-motz.

Ikus "tonsura" hitza hiztegian, eta gogoratu, azken gerrate zibilean, gure herriskotan, ilea **arraso** moztuta, buruko painulotako bandera española ezarririk, kalerik kale arrastan erabili zituzten emakume abertzaleak, lotsagarriro umilatuak. Patziku Perurena

Bitartean, hainbat taberna itxi zituzten, lokalak eta egunkariak bezala, eta atxilotu edo ihes egindako askoren andreak ilea **arraso** moztuta pasearazi zituzten Estafetan zehar, atzean txaranga zutela. Berria - Harian

---

arrasortu, arrasor, arrasortzen du *ad* birsortu.

Gaurko mundua euskaraz arraikustea, **arrasortzea** aldarrikatzen du, eta ez frantsesez pentsatuz euskarazko zerbait egitea. Berria - Kultura

Arrasortua, beraz, jendearen patua aldatzeko jaioa delakoan dago -bera ere harritua baita bere idazkiek eragiten dizkioten goratasun eta sukarraz-. Jose Angel Irigaray

---

arrasortze *iz* sortzea.

Ambedkarrek beren baitarikako **arrasortzea** zioten proposatzen Daliteri; formatzen zituen kastetako hinduisteri buru egiteko. Herria

Gaurko mundua euskaraz arraikustea, **arrasortzea** aldarrikatzen du, eta ez frantsesez pentsatuz euskarazko zerbait egitea. Berria - Kultura

---

arraspa *iz* altzairuzko lanabesa, lima mota ale-larria.

Orduan, On Camillok **arraspa** hartu eta egun erdia eman behar izan zuen den-dena kentzeko. Koldo Biguri

---

arraspatu, arraspa(tu), arraspatzen **1** du *ad* Karrakatu, limatu.

Zakarki lasaitu ninduen: **arraspatu** besterik ez zidaten egin. Joseba Urteaga

Orduan labana hartu du eskutan: jaiki eta besoak igo behar nituen -berak erakutsi dit zelan- eta besapeetan apur bat **arraspatu** nau. Urtzi Urrutikoetxea

Pitzadura horiek, esan zuen Sasik, lija latzarekin ondo-ondo **arraspatu** eta, zepa eta gatzarekin pasta bat eginda primeran tapatzen dituk. Pablo Sastre

2 (era burutua izenondo gisa)

Orain sexua agerian nuen, zatikatua, sabela **arraspatua**, kanporantz irekia. Joseba Urteaga

Eta, sutegiaren gainean, bitsaderak, koilarak eta kirten luzeko sardexkak baino gorago, zenbakidun tiradera errenkada batean, ogi **arraspatuak**, fina eta larria, ogiztatzeko ogi mamia, intxaur muskatua, iltzea, piperbeltzak eta beste espeziak paraturik zeuden lerro-lerro. Karlos Zabala

---

arraspatze *iz* arraspaz karrakatzea.

Kontatu zidan **arraspatze**-lana egin ondoren jakin zuela sendagileak ikaslea nintzela, Frantziako Ikasleen Mutualitate Nazionaleko nire txartela ikustean seguruenik. Joseba Urteaga

Baina gaur egun ez, eta ezta pilularen aurretik ere, erietxerik onenetan abortatzea baitzegoen, aski zen medikuek **"arraspatzea"** izen artistikoa erabiltzea, ebakuntza hori aipatu nahi zutelarik. Karlos Zabala

---

arrast *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) adlag* marruskadurak sortzen duen onomatopeia.

Gero **arrast** ingurarazi zion Lazkanori edalontzia. ETC-literatura, saiakera

---

arrasta[1] *iz* galga, frenoa.

Arrasta zapatuz brau! autoaren lasterra mendratu nuen: galaxiekiko hunkigunean itotzeko gerturik neukan odola! Itxaro Borda

Eta gero mugimendu guziei **arrastak** emanez, amor eman dezaten denek. Piarres Aintziart

Erredakzioburuak eta atalburuak zuzendariordearen bulegotik ateratzen ikusteak **arrasta** paratu zion nire abiadari: bukatua zen goizeko erredakzio-bilera, ni gabe bukatu ere. Aingeru Epaltza

Dio ez duela herri elkargoaren baitan sinesten, kardugun guziak ikusmolde berdinekoak direlakotz, eta hori **arrasta** bat zaio, herri elkargoaren martxari kaltea ekar lezaiokena. Herria

-Ez ezazula holakorik erran! -beldurtu zen Amatxi, **arrasta** kolpe bat emanez. Ramuntxo Etxeberri

Iparraldean bainan, dena ere on, euskarak beheiti egite horri **arrasta** kolpeño bat emana izan dela iduri halere hemen gaindi ere... Herria

---

arrasta[2] *iz* manua, epaia.

Ez baitezpada, ez bakarrik, jendea menperatzeko, baizik eta, ere, bakoitzak bere baitan senditzen baitu **arrasta** baten beharra Jainkoa, beraz, gizakiak berak antolatu aurka-botere bat liteke, bere buruaren jabe egoiteko Fededunak badu hemen erantzuna "Xekatzen eta asmatzen duzuna zure baitan daukazu, hastetik zeneukalakotz, kreatura gisa". Piarres Aintziart

---

arrasta[3] *iz* gainerakoa, hondarra.

Luberriko ur **arrasta** eta bide berri batekin herriaren itzulikatzea. Herria

---

arrastada **1** *iz* urratua, harramazka.

Gero, labana-**arrastadak** moteldu egiten ziren, eta zalantzan eta zelatan bezala begiratzen zuen aurpegira ispiluan, edo ukituz ziurtatzen hasten zen erdi ikusten zuena. Xabier Olarra

Tsarraren semea, Alexis tsarevitxa, hemofilikoa zen, hau da, emakumeek transmititu eta gizonezkoek pairatzen duten gaixotasuna zuen, zeinarekin oso zailak izaten baitira geldiarazten odol-isuriak, eta arrisku larrikoa edozein zauri edo **arrastada**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hiru aldiz ukitzen du ura **arrastadan**, gero hegal-astindu bizian aldentzen da, bistatik galtzen, desagertzen. Fernando Rey

Egongelako atearen kanpotik itxaron zuen Gabrielek balsa amai zedin, gonen **arrastada** eta oinen ziri-zara entzuten. Irene Aldasoro

Onenak hatz-ma mien labirinto itxurako aztarnak eta azkazalen **arrastadak** dituzten argazki zaharrak dira. Harkaitz Cano

2 irud/hed

Eta akaso hilik balego... Gogoeta horrek **arrastadaz** ukitu ninduen. Monika Etxebarria

---

arrastaka **1** *adlag* herrestan.

Horrenbestez, mundu honetako gure bizitza **arrastaka** ibiltzea baino ezin zen izan, jatorrizko bekatua ordaintzeko. Luis Elberdin

Goizaldera etorri zitzaizkion, desorduan eta zalapartaka, Nikolas tsarraren morroiak, eta **arrastaka** eraman zuten, Polonia aske baten alde egin nahi zituen oihuak kolpe eta burdin hotsekin isilaraziz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lotsagarri ikusi dut neure burua, zangoak **arrastaka** eroan behar ditut, praketan egindako ume baten antza hartu dut. Koldo Izagirre

Etxe hondatu batzuen artetik aurrera **arrastaka** joan, eta ibai ñirñirkaria igaro zuen. Irene Aldasoro

Baina, aitor dezagun umil egia: giza aberea lurrean **arrastaka** hobeto moldatzen da, zeruan goiti horietan hegaz baino... " Txillardegi

Ahuspez etzan zen jende guztia lurraren gainean, eta **arrastaka** joan ziren emakume batzuk marabutarenganaino, soinekoaren azpian muin egitera. Joxan Elosegi

Joxanek alkandoraren samatik gogor oratu eta, ia **arrastaka**, uretara doazen harrizko mailetara jaitsi du. Paddy Rekalde

Sindikalistak **arrastaka** atera dituzte Donostiako udaletxetik. Berria - Ekonomia

Yonki bat kalean barrena **arrastaka**? Bernardo Atxaga

Ama al zuen hanka **arrastaka** zebilen emakumea? Anjel Lertxundi

Jazz-zulo guztiak ibiltzeko prest nengoen, baita disko berriak erosteko ere, baina andreak belarritik tira egin eta **arrastaka** eraman ninduen sukaldera zorrak kitatzera. Javi Cillero

2 irud/hed

Jokinek, berriz, ez zuen gozatu Munitibarren eta **arrastaka** ibili zen saio osoan. Berria - Kultura

" **Arrastaka** bizi behar al duk orain? ", esaten nion neure buruari. Bernardo Atxaga

Erregeak zerbitzatzeko gai denak jainkoak adoratu behar ditu! Baina guk, frantsesok, baina guk, nire aberkideok, **arrastaka** jarraitu behar al dugu, otzan-otzan, hede amorragarri horiekin lotuta? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Atalkako eleberri: Literatur lan mota bat, maiz gezurrezko istorioa, egunkari edo aldizkari baten aleetan **arrastaka** ibili ohi dena. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrastaka alde (3); **arrastaka atera** (27); **arrastaka atera behar** (3); **arrastaka atera ninduten** (3); **arrastaka atera zituzten** (6); **arrastaka atera zuen** (3); **arrastaka ateratzen**

(3); **arrastaka dabiltzan** (8); **arrastaka daramala** (3); **arrastaka eraman** (73); **arrastaka eramanez** (11); **arrastaka eramatea** (3); **arrastaka erameteko** (5); **arrastaka eramaten** (10); **arrastaka ibili** (9); **arrastaka ibili behar** (3); **arrastaka ibiliko** (3); **arrastaka ibiltzea** (3); **arrastaka ibiltzen** (5); **arrastaka igo** (7); **arrastaka itzuli** (3); **arrastaka jarraitu** (3); **arrastaka joan** (10); **arrastaka zebilen** (6); **arrastaka zeramala** (4); **arrastaka zeraman** (4); **arrastaka zihoan** (3); **arrastaka zuela** (4); **artean arrastaka** (3); **atzetik arrastaka** (4); **behera arrastaka** (5); **ekarri zuen arrastaka** (3); **eraman zuen arrastaka** (5); **erdi arrastaka** (9); **erdi arrastaka eraman** (3); **gainean arrastaka** (11); **hankak arrastaka** (11); **hankan arrastaka** (3); **heldu eta arrastaka** (4); **ia arrastaka** (9); **ia arrastaka eraman** (3); **kanpora arrastaka** (4); **lau hankan arrastaka** (3); **lurrean arrastaka** (23); **lurrean arrastaka dabiltzan** (5); **lurretik arrastaka** (4); **lurretik arrastaka eraman** (3); **oinak arrastaka** (14); **sabel gainean arrastaka** (4); **zehar arrastaka** (3)

---

arrastakari *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* *izond/iz* narrastia.

Sahats **arrastakari** bat da, klima hotz gogorretara egokitutakoa. ETC-prentsa

Bi **arrastakari** haiek baratzean eginzale diren landare sarraskiei aurrea hartzeko zaintza lanak zorroztu behar izan ditut: gauero hor ibili naiz begirale katuaren mugarrien barruan birundan. ETC-prentsa

Rotterdam portuko lanetan gizon **arrastakaria** eta estimatua, ez bakarrik bere hirian, baita herrialde osoan eta beste hainbat herrialdeetan ere. ETC-entziklopedia

"Salix herbacea". Sahats **arrastakaria**, klima hotz gogorretakoa. ETC-entziklopedia

---

arrastan **1** *adlag* herrestan. ik **arrastaka**.

Nabariko da zentrotik muturrera tarte txikiagoa duten parteetan astunagoa dela zamariaren lepoa estutzen duen karga, eta zentro horretatik tarte luzeagoa duten parteetan, berriz, arindu egiten dela karga, bai eramateko eta bai **arrastan** ibiltzeko. Santiago Iruretagoiena

Pauso soinuak Nikosen gelan, indarkak, zerbait **arrastan**, gero ate kolpe bat eta igogailua martxan. Iñaki Zabaleta

---

arrastari *iz* narrastia.

Haurra sugeari hortzaka: Ranchin bi urteko ume batek kobra suge bat ia konturatu gabe hartu, ahoratu, haginka egin eta kalitu egin zuen **arrastaria**. Gotzon Garate

---

arrastatu[1], arrasta(tu), arrastatzen **1** da/du *ad* herrestan joan edo eraman.

Ez zekien cricketean; motela zen; oinak **arrastatzen** zituen. Anton Garikano

Ene harridurarako gaztelaniaz ari ziren, nola ariko baitziren handik aitzina haserretzen edo odola berotzen zitzaien bakoitzean, zeren osabak ez baitzuen, artean, italianoz mintzatzeko erraztasunik, eta solasaren beroan gaztelaniarat **arrastatzen** zuen Alessandro bera ere. Joan Mari Irigoien

Gau hartan, bere lehen kontzertu handian, soineko beltz luzea **arrastatuz** pianoaren ondora iritsi zenean, begiradarekin bilatu zuen, lehen lerroko oihal gorriko besaulkien artean, baina ez zuen ikusi. Alberto Barandiaren

Baina, behin iraganerako atea zabalduta, nekeza zen data hartan irautea, handia baita denbora joanaren erakarpen indarra; zirimola moduko bat baita iragana, urtez urte eta mendez mende bere baitara **arrastatzen** gaituena. Bernardo Atxaga

Zuhaixka baten atzean geratu ziren zain, Evans jauna atzeko gelatik korridorean barna bere txinalak **arrastatuz** etorri eta sarraila irekitzen ahalegintzen zen artean. Koro Navarro

Lera bat zuzen **arrastatuz** gero, lautada zakar horretan aurrera, berehala hautsiko litzateke. Joseba Sarrionandia

Maisuri uztea gu lurrean **arrastatzen**, ipurdiari neurriak hartu eta txikitzeko? Anton Garikano

Hauek hodei txiki berriak sortzen dituzte; gero hauek elkarri batzen eta gehitzen zaizkio eta elkartzez handitzen dira eta haizeek **arrastatzen** dituzte, denborale ohila abiatu arte. Xabier Amuriza

2 (era burutua izenondo gisa)

Oihu **arrastatu** bat bat zen, mozkorren baten alarauaren gisakoa: "Ai, bizia, ez nauzu merezi!". Juan Garzia

---

arrastatu[2], arrasta(tu), arrastatzen **1** du *ad* atxilotu.

Bainan zendako **arrastatua** izan den mugaz haindian, hori dute frangok ezin onets. Herria

Pilota partida bukatzerakoan, azken kintzea edo xaxa egin eta, Perkain ohartzen da poliza xefa heldu zaiola xuxen xuxena berari buruz **arrastatzera**, keinu eginez poliza laguneri. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Arrastatutako asko berehala askatu zituzten arren, kartzelatu edo konfinatu egin zituzten beste batzuk. Jokin Urain

Beste 92 immigratu afrikar **arrastatuak** izan ziren Tenerifera joan berriak zirelarik. Berria - Mundua

Xan, aitaren anaia zaharrena ere alemanengandik ihes joan zen baina guardia zibilek **arrastatu** zuten eta Miranda de Ebroko kontzentrazio kanpora eraman preso. Ana Urkiza

Montreal eta Quebec-era joan eta Niagarako urjauzietatik bueltatu ginen, beti mozkor-mozkor eginda, gure betiko New York honetatik irten ginenetik Bostonera bidean abiadura handiagatik **arrastatu** gintuzten arte, ezta Pearline? Lopez de Arana

Arrastatu zuten bere lagunen artean eskea egin zuelakotz preso zirenentzat. Marzel Etxehandi

Gazte bat **arrastatzen** denean, ikastolako umea izan dela irakurtzen da prentsan. Itxaro Borda

2 (era burutua izenondo gisa)

Arrastatuetan, ETA-ren burugazi ekarri bi lagun, Salisen bizi zirenak ondo hetan nehork jakin gabe nor ziren: Mikel Albizu, Antza deitzen dutena, 43 urte, eta adin bereko emazte bat, Soledad Iparragirre, Anboto erraiten diotena. Herria

Begitarteak estalirik, **arrastatuak** komisariara eramaten eta galdezka une osoan berogailuei esku burdinaz loturik atxikitzen zituzten, beren kaka eta pixan irakitera utziz. Itxaro Borda

---

arrastatze[1] *iz* herrestan joatea edo eramatea.

Etxolarainoko **arrastatze** gorrotagarri guztian ez zuen behin ere jauzi egin. Anton Garikano

---

arrastatze[2] **1** *iz* atxiloketa.

Bere atsegina ez du segur ixilean utzi Nicolas Sarkozy ministroak, xuxena jakin gabean halere zer efetu izanen zuen **arrastatze** horrek Kortsikako hauteskunde hoieri buruz. Herria

Gainera, oleobide hodei funditze eta ustezko terrorista **arrastatzeak** ere baditutze ukan berriak. Herria

Arrastatzearen hobendun sentitzen zen, Wernerren abisuari elkor egon zelako, berekoiz. Itxaro Borda

Korsikako bozketetan eragiteko guraria izan zela uste dute, halaber, bai nazionalistek, zein ere hala ez diren indar politiko zenbaitek, 2003ko uztailaren 4an Yvan Colonna **arrastatzearen** kontuarekin. Berria - Mundua

2 *etxe barruko arrastatze* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Abenduan immunitatea kendu zion Legebiltzarrak eta lehen aldiz **etxe barruko arrastatzea** agindu zuen Managuako auzitegiak. ETC-prentsa

Homilia hark zinezko ekaitz bat eragin zuen, Gobernuak erabaki baitzuen Añoveros Espainiatik egoztea -aurrez, gotzainaren **etxe barruko arrastatzea** agindu zuen, eta Egoitza Santuari gotzaina Erromara deitzeko eskatu-. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arraste

1 *arraste arrantza* *iz* sareak herrestan eramanez egiten den arrantza.

Akordioak dio frantziarrek martxoaren 20tik ekainaren 1era debekatuta daukatela arrantza egitea, baina, Tejedorren arabera, epe horretan eta igandeetan antxoa harrapatzen aritu dira **arraste-arrantza** pelagikoekin. Berria - Ekonomia

Kutsaduraren eta **arraste-arrantzaren** erruz, arrain espezie asko betiko galdu direla esan zuen NBEko idazkari nagusiak. Berria - Gaiak

2 *arraste ontzi* *iz* arraste-arrantzan aritzen den ontzia.

Euzko Jaurlaritzak gudarako atondutako Nabarra **arraste-ontziak** eta Francoren aldeko faxisten Canarias gerraontziak, 1937ko martxoaren 5ean, Bizkaiko Matxitxako lurmuturraren aurrean, egin zuten borrokan oinarritua dago obraren izenburua. Berria - Kultura

Frantziako **arraste ontziak** itsas hondoak suntsitzen ari direla kritikatu, eta karnata bizia ekialderago ere biltzeko premia ekarri du gogora. Berria - Harian

4 *arraste indar* *(corpusean ez dago; ETCn **99** agerraldi)*

Ez ziren konturatu aireak, nahiz eta ikusezin eta ukiezina izan, erresistentzia-indarra eragiten duela, zeinak jaurtitako objektua geldotzen duen, bestelako kanpo-indar batek **arraste-indarrari** aurka egin eta zero indar garbiko egoera sortzen ez badu behintzat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Paraxutistari, lurrerantz eroriz, grabitateak eta **arraste-indar** batek eragiten diote. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arraste-indarraren motako indarrak direla bide, energia gastatu behar dugu kargak materialean zehar pasarazteko eta, ondorioz, energia termikoa sortzen dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arrastegi *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* *iz* arratsaldea.

Inguruetako soroetatik etxera zihoazen erroien marraska zeharo nabarmena zen **arrastegiko** brisa mehean. ETC-literatura, saiakera

Joandako ekainaren 18a, **arrastegiko** bostak aldera. ETC-prentsa

Arrastegiko 18:00etan gaztetxoenentzako antzerkia izango da Hori Bain: Dejabu taldearen _i_Azken portu_/i_, hain zuzen ere. ETC-prentsa

---

arrastelatu, arrastela(tu), arrastelatzen **1** du *ad* eremu zabal bat eskuz garbitu. ik.**eskuaretu**.

Arratsaldearekin, Bankako eta Urepeleko 29 haur bildu dira Urepeleko erreka zati baten **arrastelatzeko**. Herria

2 irud/hed

Sarjentu nagusiaren begiek **arrastelatu** egin gintuzten. Mirentxu Larrañaga

---

arrastelu *iz* eskuarea, nekazariaren lanabesa.

Gaztaroko oporretan gure mendi xolako pentzean belar edo soro metak moldatzen genituen, **arrasteluaren** orraziarekin jarriz kaskoan berdurekin egin boneta, borda ondoko beste pentzearen matelan gordetzera zihoan iduzkiak meten itzala "hantxetaradino luzatzen zuela" auzoko laborari poetak erraten zuen bezala. Piarres Aintziart

---

arrasti **1** *iz* arrastiria; arratsaldea.

Atzo **arrastian** Arabako PSE-EEko kideekin bilera egin aurretik egin zizkien adierazpenok Lopezek komunikabideei. Berria - Euskal Herria

Orduan, eta orduan soilik, lortzen zen argi hori **arrastian**. Unai Elorriaga

Ahaztu baino lehen, Eusebia izan da **arrastian**, ezagutzen ez nuen botika bat eskatu dit eta bihar etortzeko esan diot, nahiz eta domeka izan ostatuko atetik sartuta kasu egingo diozula. Josu Landa

Astean behin, Janeren umezainak **arrasti** bat libre izaten zuen; holakoetan, Wendyk sartu behar izaten zuen Jane ohean. Julen Gabiria

Izuaren izuaz, **arrastiko** momentu hartan ni baitan zalantzaren harra inoiz baino gosetiago zebilen. Edorta Jimenez

Arrastian bota dut bat, zer gerta ere berehalakoan ez nadin joan gauez, baina bigarrena ez da komeni. Urtzi Urrutikoeetxea

Atzo **arrastian** hasi zen BOSekin batera entseatzen; ondorioz, ez du denbora askorik izan interpretazioaren azken emaitza zer-nolakoa izango den jakiteko. Berria - Kultura

Arrastian beste pare bat ordutik gora joten egin beharko ebela kalkulau ezkero, gizonak zortzi orduko ekitaldia burutu eban tente, soinua besoetan eta larogetazak urte lepoan. Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrastiko ordu** (3)

---

arrastiri *(orobat **arastiri** g.er.)* **1** *iz* arratsaldea.

Arrastiria bazterrak histen ari da jada. Aingeru Epaltza

Lainotzen hasia zen zerua; eta **arrastiria** berehalako girotzen. Txillardegi

Arrastiriak goxo-goxo kaleen ertz zorrotzak leuntzen zituen. Lopez de Arana

Arrastiri eta ilbeherak zituen gogoko; emakume kadukatuak, postizoak eta gezurrezkoak zitzaizkion atsegin, gutxienik begira egoteko, eta leku hits eta itogarrietan sentitzen zen eroso. Joxean Agirre

Arrastirian, mendi sorbaldan azken argi-printzak harrotasun oro galtzear dauden unean, minak ez du soinurik. Anjel Lertxundi

Arrastirian, zazpietan, Baionaren ordez Parise, Akitaniaren ordez "Ile de France" delakoa eta gero orokorra. Herria

Olorongo Mendi Saileko Gendarmeriak atzo **arrastirian** konfirmatu zuen Manex Goihenetxeren eta Anne-Marie Lhanden izeneko emazte baten gorpuak aurkitu zituela Pic du Biscau mendian, Biarnon Biharamun **arrastirian** Madeleine bila jin zitzaionean, ehundegian jarririk aurkitu zuen, ohe gaineko baten zati baten burutzen ari. Berria - Kultura

Sabai zerura irekitik aldraka ikusi nituen pasatzen zozoak, **arrastirian** iluntasunak bideak itxi aurretik hegaldatzen diren txoriok. Juan Garzia

Tontorrak distira egiten zuen han goian, betiereko elurraz jantzirik, bakarti eta mundutik isolatua, ekialdean itzal urdinek margoturik, eta mendebaldean **arrastiriaren** gorriak tindaturik. Agustin Otsoa

Taberna bateko terrazan jesarrita zegoen Santos, Santurtziko portutik hurre, eta bere begiak ez zeuden itsasadarra errainu kaleidoskopikoez janzten zuen **arrastiriaren** kontenplazioan. Josu Landa

Behartsuen lurraldea urreztatzen duten **arrastiriei** begira. Juan Kruz Igerabide

Arrastiriko eguzkiaren azken izpi ahul gorriskek ferekatzen gintuzten. Aitor Arana

Gaugiro ederra genuen; izar batzuk hasiak ziren **arrastiriko** zeru nabarra zulatzen. Koldo Izagirre

Arrastiriko ordu hartan leihotik sartzen zen distira larua nahikoa ez izan arren, argirik piztu gabe irakurtzen ari zen. Harkaitz Cano

Argiak eta kandelak **arrastiriko** zortzietan itzali behar ziren. Juan Garzia

Sartalde argitsutik, **arrastiriko** oskorriak dirdira noranahi hedatzen zuen: letoira, nikelera, botoietara eta jendearen begietara. Lopez de Arana

Ibarrak **arrastiriko** zehar-argitan, itzal-mazelak, itzal-trokarteak, lats zuriak han behean, larre-pentzeak zehar-argitan, sarale-metak eguzki-argitan gorri, eta artalde bat oihan-ertzeko sakonune harri-kozkortsu batean: zizare zuriak iduri! Joxe Austin Arrieta

Lisboatik, 1540ko azaroaren 4ko **arrastirian**, Jainkoa baitan zure zerbitzari apala, Frantzes. Piarres Xarriton

Laster bi pastoral: lehena Sohütan "Xiberoko Makia", üztailaren 15ean, igante **arrastiriz**, eta 21 an, neskenegün arratsez. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Udako **arrastiri** epeletan erabili ohi genuen harrizko mahai borobila. Txillardegi

Laino trinkoa zegoen Tolosan **arrastiri** epel hartan. Txillardegi

- **Arrastiri** on, Ixaskun. Txillardegi

Arrastiri on, lagun. Juan Garzia

Arrastiri biguna zen, arratseko hotza ez zen nabaritzen, ia. Jon Alonso

Eurriaren azken egunetako **arrastiri** euritsu eta nahasiaren amaieran, bost zaldizkoak aldapa bihurgunetsua igo eta Bree hegoaldeko atera iritsi ziren. Agustin Otsoa

Eta legarrez zamatzen zuen gizon bakar bat gainean, **arrastiri** isileko bakardadean lanean ari. Txillardegi

Nik, baserrian berean, aitaren aldean, zerbait-zerbait akuilatzen bainuen, bereziki udako **arrastiri** luze eta larunbatetan! Daniel Landart

Arrastiri leuna zetorren, eta hodeiak ekialdetik gorriska. Txillardegi

Egunsenti makurra, egun zoriontsua eta urrezko **arrastiria**! Agustin Otsoa

3 ***arrastiri apal*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Arrastiri apal hartan, Martinak, zerua buru gainera lehertzen zitzaiola uste ukan zuen. ETC-literatura, saiakera

Peredikü emaite zonbaitetarik landa, 12: 30etarik, harat, jei giroa nausitüren da Lextarreko plaza eder hortan, **arrastiri apaleko** 19: 00etan, nonbait han, müsikaz, kantüz eta koblaz alageratürik datekean karrika üngürü batekila ürrentüko delarik besta egünaldia. ETC-prentsa

Ekaina bero honetako **arrastiri apaletan** Santizpirituko Errepublika Plazara noa, hango platano zuhaitzen maldan bazterrei begira edo irakurtzen higatzeko. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrastiri on** (3)
> **igante arrastiriz** (3)

---

arrasto *(ETCn **26.668** agerraldi)* **1** *iz* nonbait egon den zerbaitek bertan uzten duen seinalea; zirriborro gisako marra. ik **hatz**; **aztarna**; **kutsu**.

Arrasto honetan hasi zen, bada, postmodernitatea zabaltzen. Berria - Kultura

Naziek ez zuten deuseren **arrastorik** utzi nahi, bereziki kontzentrazio kanpamenduetan gertatu zenari buruz. Eneko Bidegain

Arrasto eta aztarna guztiei adi zebilen beti, egokierarik ñimiñoena ere alferrik galdu gabe. Karlos Zabala

Berriro jantzi eta plazarantz begiratu nuen: han ez zegoen neskatoaren **arrastorik**. Joxemari Iturralde

Baxoerdiari eraso zion Asierrek, eta beheko ezpainarekin ardoaren **arrastoak** kentzen zituela, zera esan zidan: Maialen ez zegok proiektuan, noski. Lander Garro

Baina jantziak kendu aurretik, berriz eskua sartu zuen jakaren barrengo poltsikoan, han, gaizki akordatzen ez bazen, mirariaren **arrasto** ukigaia eduki behar baitzuen. Matías Mujika

Ez zekiten odolgabea ote zen, harroa edo neska txikiek jana zioten gizalegearen **arrasto** oro. Anjel Lertxundi

Ez zion inori ere orri horiek irakurtzen utzi eta kontu egin zuen bera hil ondoren haien **arrastorik** ez uzteko. Juan Garzia

Dianneren **arrastoa** jarraitu zuen. Fernando Morillo

Geroztik entzun dut Québec-eko erreferendum, hizkuntz eredu, azterketa, lege eta mirakulu asko goraipatzen Euskal Herrian, baina nehoiz ez F.L.Q. zenaren **arrastorik** izan denetz ere salatzen, gai hori tabu balitz bezala gure herrian. Piarres Xarriton

Dioenez, jendeak uste omen du ezohiko izakien oinek (lurrean, zoruan, harrian...) urratsaren arrastoak utzi dituztela, eta **arrasto** horiek harri eta harkaitz askotan ageri direla. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lepoa parako nuke, **arrasto** horiei segiz, nere aldeko urbici garbiagoak eta hurbilagoak aurkitu baietz, baina, beude horretan gaurkoz. Patziku Perurena

Bularretakoak ez ziren existitzen, / soilik kremaileradun **arrastoak**. Jasone Osoro

Etengabe erretzen zuen hitz egiten zuen bitartean; hatzetan nikotinak uzten duen **arrastoa** nabari, une batez ere ez zuen geldi edukitzen eskua. Xabier Olarra

Nik ikusi nuenez, han ez zen gizon galtzadunen beharrik etxeko biztanle guztiak **arrasto** beretik eramateko. Aingeru Epaltza

Nire barruan ez dago kaosaren **arrastorik**. Anjel Lertxundi

Oso sineskerietara emana zen; kalearen erditik ibiltzen zen, eta inoiz ez espaloitik; erdi-txantxetan erdi-seriotan esaten zuen eten behar ez zen hari ikusezinezko **arrasto** bat uzten zuela igarotzean. Josu Zabaleta

Aurretik zakurrak zihoazen, **arrasto** bila. Juan Kruz Igerabide

Arrastorik ere ez zait gelditzen atzoz geroztik. Fernando Rey

Eta lana egiteak esan nahi du kasu honetan neskatoa aurkitzea, edota bere ezkutalekuraino eramango gaituen edozein **arrasto** bilatzea. Joxemari Iturralde

Baina ez zuten txanpon bakar baten **arrastorik** aurkitu. Karlos Zabala

Elurteak Iñakiren oinatz eta **arrasto** guztiak estali, eta gaua kanpamenduetariko baten babesean iragan izanen zuela erabaki nuen; hori sinestea erabaki nuen, bederen, eta hara abiatu nintzen, horrenbertzez. Xabier Montoia

Baina Euskal Herriko toki guztietan geratzen dira adoratze zahar honen **arrastoak** eta aztarnak, antropologoak ongi ohartu direnez. Pello Salaburu

Hiru **arrasto** egin zituen agirian, eta baten bat izan zen lekuko. Koro Navarro

Azken ikerketak zuzenak baziren, zulo beltzek uzten zuten **arrasto** bat sortzen ziren unean eta gamma izeneko izpien bidezkoak ei ziren zulo beltzaren jaiotzaren proklama adierazpenak. Harkaitz Cano

Ipuin zahar haien **arrastorik** ez, ordea, eta are gutxiago Superhombre-ren koadernoena. Iban Zaldua

Gizon argal luzea zen bera, zain eta gihar, txikitan izandako istripu baten **arrasto** gisa, eskuineko begiaren betazalak tik batez etengabe itxi-irekitzen zitzaizkiona. Felipe Juaristi

Juan Martin Elexpuruk eta Iban Arantzabalek lekuko garrantzitsuen **arrastoan** jarri gaituzte. Koldo Izagirre

Arrasto hau nabarmen agertzen da gorputzaren sentimenen aurrean arimaren mugimenduak bortitzak direnean. Imanol Unzurrunzaga

Eta itxaropen honen iturria bakarra da: bizi-grina, denok kondenatuta gaudela eta denok, **arrastorik** uzteke, hilko gaituztela baieztatzen duen ideiari aurre egiten baitio. Felipe Juaristi

Gaueko freskurak ekarri zion burura gero egingo zuenaren **arrastoa**, ardoaren beroak eman zion hartarako adorea. Felipe Juaristi

Ondoko espektrograman ikus daitezke hots mota ezberdinen **arrastoak**, gaztelaniazko protuberancia hitzaren ahoskera batean. Lourdes Oñederra

Onartzen da hilketa izan zela, baina **arrasto** guztiak kale itsuan amaitu zaizkie. Fernando Morillo

Gauean, lantza bat erortzen da sabaitik ohe gainera, baina **arrasto** bat besterik ez dio egiten zaldun ezezagunari. Juan Kruz Igerabide

Arrasto horietako batzuk hezur muinetan sartuta daramatzat, noiz isil noiz kurrinka, aldian aldiko aldartearen arabera. Joxerra Garzia

Orain, Basauriko presondegitik pasa ondoren, ez zaio, ez, orduko harrotasunaren **arrastorik** sumatzen, akabatuta dago gizona. Patxi Iturritegi

Eta ez da batere zaila iberiar monarkiek babesturiko espedizio ugarien atzean italiar merkatarien **arrastoa** bilatzea. Koro Navarro

Ez du bizia galtzeko arriskurik; baina beldur handia dago ez dela berriro bere senera itzuliko; errudunaren **arrastorik** ez da. Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Nekeaz eta ezinaz oraingoz **arrasto** handirik ez dugunez, estrategiari eta erantzukizunari erreparatuko diogu, itzuliko etapa gogorrenetakoa esprintean zergatik erabaki zen azaltzeko. Berria - Kirola

Elkarrizketa hauek alderatuz, epe politikoei buruz, Kataluniako ereduari buruz, erabakitzeko eskubideari buruz eta alderdien arteko harremanei buruz hainbat **arrasto** argigarri aurki daitezke. Berria - Euskal Herria

Senarrak ezer gutxi zekien hartaz, salbu eta Buchenwaldeko kontzentrazio-esparruan bizi izandakoaz eta bizipen hark bere baitan utzitako **arrasto** sakonaz ziharduela egileak. Imanol Zurutuza

Arrasto handi bat egin dut Dedicación profesional jartzen zuen lekuan. Pako Aristi

Urte asko pasatu dira hartatik, eta, bizitzak garai hartako irudi gardena **arrasto** beltzez margotu badit ere, funtsean maistraren hasierako irudi hark bizirik dirau nigan, eta ez du galdu orduan eragin zidan zirrara garbiaren amiñirik ere. Juan Kruz Igerabide

XV-XVI. mendeetako haien **arrasto** ederra. Edorta Jimenez

Neure kasuan, ez dakit kasualitatearen ala patuaren ondorioa den baina, esan liteke Jontxuren aitona Juanitoren deskubrimenduak **arrasto** nabarmena utzi zuela nire bizitzan. Xabier Mendiguren Elizegi

Lilleko geltokien hitz emanda genuen eta huts egindako topaketaren **arrasto** sorra, nire amesgaizto familiarra. Josu Zabaleta

Abelgorri baten hondar sarraskituak ziren, eta beraietatik hautsitako abar eta zuhaitzezko **arrasto** garbi bat sortzen zen, beherago zegoen lur tarte leunerantz. Joanes Urkixo

Bai, eguzkia hor nonbait dago, ganduak **arrasto** arroxak dauzkan aldean edo. Bernardo Atxaga

Marra horiek, espaloi gaineko marratxo horiek ekarri zioten burura zein egokia litzatekeen tintaz bustitako bola txiki bat paperaren gainean tintazko **arrasto** mehe eta garbia uzteko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Atexka gehientsuenetan odol idorraren **arrasto** marroixka bat zegoen. Fernando Rey

Alemana dakizu, geologia ere bai, eta horrelako gauzek **arrasto** sakona uzten dute gizon batengan. Antton Olano

Izan ere, gobernadore militar berriaren izendapenak, hain eduki kezkagarriko bi gutun haiek eta hirian zabalduriko zurrumurruek **arrasto** nabarmenak uzti zizkieten aurpegian, eta begien bistakoa zen haietako askori lasaiegi geratu zitzaiela fraka. Jose Morales

Elurretan itzulika eta iraulka ibili ginen, odolaren **arrasto** gorriak uzten zurian. Jon Maia

Gizon potolo eta adinekoa antzeman dut, sudurpean behinola egondako bibote zorrotz baten **arrasto** zurixka zeraman eta asmo oneko jakituria zerion bere aurpegiari. Urtzi Urrutikoetxea

Baten ala bestearen **arrasto** txikiren bat geratzen da, lorratz antzeko bat, doinu hutsa gehienetan, hari laguntzen zion esaldi bat edo bi zenbaitetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Harriak ez du kristala hautsi, baina kolpeak **arrasto** nabarmena utzi du kristalaren erdi erdian. Jokin Muñoz

Gure amaren osaba batek jarri nindian **arrasto** onaren atzetik, abuztuaren bigarren egunean porciúncula festa ospatzen zela esan zidanean. Xabier Etxabe

Nigan gertatu zenak ez du **arrasto** garbirik utzi. Monika Etxebarria

Zeinen gogotsu dagiten **arrasto** faltsuan zaunka! Juan Garzia

Hala ere, egingo nuke Itzean ere **arrasto** garrantzitsu asko falta dela Baroja ulertzeko: ikasle-garaiko liburuak, bidean galdu zituenak, irakurri izanaren lotsaz ezkutatutakoak... Anjel Lertxundi

Agiri hauek guztiek eman didate, neurri batean bederen, zenbakiei darion arnasa antzemateko aukera, paper eta ordu hotzei orbanetan **arrasto** humanoak bilatzeko, ahotsak eta aurpegiak ezagutzeko, ikusteko edo asmatzeko. Jokin Urain

Gizonaren oinzolen **arrasto** lohiak korridorean eta sukaldean luzatzen dira. Alberto Barandiaren

Lehen ere aipatu dugunez, Russellen ustez, izen propio puru batek denotatu egingo du soilik, eta ez du inolako **arrasto** konnotatiborik izango. Askoren artean

Arrasto zuzenen kopuruak erakutsiko digu zein neurritan bizi garen gure egiarekin. Pako Aristi

Hermannek, bere labana atera, galtzetan igurtzi, eta elkarren artean hiruzpalau metroko tartea zuten bi **arrasto** paralelo marraztu zituen haren puntaz patioko lur hilean. Anjel Lertxundi

Amaren eritasunak eta heriotzak **arrasto** sakona utzi bide zuten Poeren memorian. Koro Navarro

Aldi berean begiratu zituen neska eta flotatzen segitzen zuen gorputz geldia; neskak lasterka egiten zuen ur gainean, **arrasto** apetatsu eta jarraigabeak utziz, gorputza pedalari atxikia zegoen, setati. Jon Alonso

Papertxo bat da, saskibaloiko euskarrian erdi ezkutatuta; zabaldu eta jarraibide zehaztuxeagoak irakurriko dituzte bertan: hara joan, bestea egin, eta **arrasto** berriaren bila abiatuko da talde osoa berehala. Xabier Mendiguren Elizegi

Sentipena berehala desagertu zen, baina ez erabat: izan ez zenaren oroitzapen asaldagarrien **arrasto** leuna geratu zen, ezabaezin. Jose Morales

Noiz izan zenuen, Teresa, azken hilekoa, hilekoaren **arrasto** iluna, ardo beltz batzuen gorri ilun hori. Lourdes Oñederra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dago **arrasto**-izpirik Slytherinek noizbait erratzentzako armairu sekretu bat egin zuela esateko ere! Iñaki Mendiguren

Hizkuntza, gizataldean, burmuin bakoitzean ezarririko **arrasto** multzo baten gisa dago ezarria, gutxi gorabehera hiztegi bat bezala, horren ale guztiak, denak berdinak, gizabanakoen artean banatuak bailiran (ik. 40. orr.). Isabel Arrigain

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eguerdi ostean, beren profetagintzan jarraitu zuten arratsaldeko oparia eskaintzeko ordurarte; han ez zen, ordea, inolako ahotsik izan, ez eta erantzun-**arrastorik** ere. Elizen arteko biblia

Aintzirara joateko bide bakarra dago: haitzetatik ur-bazterrera gero eta meharrago jaisten den bidezidor bat, lur beratzean hanka**arrastoek** egina. Fernando Rey

Martinen aurpegian tristezia **arrasto** bat islatu zen, sentitzen zuena gordetzera saiatu arren. Aritz Gorrotxategi

Egun argiarekin, neskaren odol **arrastoa** aurkitu zuten mairuek, eta pasabidean barrena hari jarraituz, bi maitaleak aurkitu zituzten. Martin Anso

Ibilgailuko behe-aldeko olio **arrasto** beltzetan distiratsu ageri zen odol marra. Urtzi Urrutikoeetxea

Bizikleta hartu eta auzoaren ingurua egin zuen: buhame **arrastorik** ez! Itxaro Borda

Mikeli pasa zitzaion burutik ez lukeela mereziko halako arma distiratsua bolbora **arrastoz** zikintzea. Unai Iturriaga

Txapazko xarlango baten antzera, fokuek eskas samar argitutako trafiko-**arrastoak** harrapatzeko deman zihoala zirudien, ehundaka urte lehenago bertako jendeek, indioek, egindako bide hartatik; indian trail, zuri eta anglosaxoien berbetan. Iñaki Zabaleta

Ez zen hori tragediaren amaiera izan, hala ere; espagetiak tomate-**arrastoa** utzi zion Malcori. Unai Elorriaga

Guztion hatz-**arrastoak** hartu zituen, orri zuri baten behealdean, eta kanpoan itxaroteko agindu zigun. Juan Kruz Igerabide

Pikardia-**arrasto** bat nabari zitzaion ezpain-begietako zirkinari. Anjel Lertxundi

Herri zahar konkistatzaile baten lege-**arrasto** batzuek, duela hamabi mende Konstantinoplan agintzen zuen printze batek bildu zituenak, gero longobardoen errito batzuekin nahastuak, eta interpretari pribatu eta ilunek liburukote ulertezinetan taxutuak, osatzen dute iritzien tradizioa, Europa gehienean oraindik legeak deitzen zaiena. Juan Martin Elexpuru

Astia izan zuen, gorritzen hasitako hosto arteko eguzki printzei begira, bala **arrasto** haiek nork eginak zitezkeen, eta zergatik, pentsatzeko. Koldo Izagirre

ez genuen besterik behar, ilunbista hartan, pneumatiko-**arrasto** bila hirurok bide banatatik itsumustuka elkar galtzea baino. Joxe Austin Arrieta

Gero, ordea, tratamenduaren ondoren, alferrik eragin genion iman indartsu bati gure hautsen ur-suspentsioaren barnean: burdin **arrasto** bat baino ez genuen jaso. Juan Garzia

Taberna aurrean gelditu zen odol-**arrasto** bat izan zen aztarna bakarra. Gotzon Garate

Gosari-ordua igaroa zen apopilo-etxean eta platerez estalirik zegoen gosari-gelako mahaia, urdai eta urdai-azal zatiak eta arrautza-**arrasto** horiak plateretan. Irene Aldasoro

5 *arrastoan sartu*

Hamabosgarren mendearen hasieran oso zabaldua zegoen herexe eta zismatikoak "elizaren **arrastoan sartzeko** ". Xabier Olarra

Lan finkoa edo ezkontza medio, taldeko gainerako partaideok **arrastoan sartu** ahalean, Charlyren noragabeak halako kutsu deserosoa ere hartu zuen noizbait. Aingeru Epaltza

Garai batean ez nengoen batere konforme baieztapen horrekin, haserretu ere egiten ninduen, baina urteen poderioan ni ere haren **arrastoan sartu** naizela esan liteke, min ematen badit ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Odolberoa da Irujo, eta askotan **arrastoan sartu** behar izaten dut. Berria - Kirola

Ez dut horien **arrastoan sartzeko** asmorik. Berria - Euskal Herria

Eskerrak Aloña genuen tartean, etxegintzaren gorabeherak ongi ezagutzen baitzituen, eta aski kalipu baitzuen linterneroak eta igeltseroak gobernatzeko, elektrizistak eta ebanistak **arrastoan sartzeko** . Xabier Mendiguren Elizegi

Besterik gabe, Kutzek **arrastoan sartuta** eduki nahi zuen, gogorarazi nahi zion nor zen nor une bakoitzean eta nor zegoen noren agindutara. Joxemari Iturralde

-Bide batetik eraman nahi genuke bizitza, **arrastoan sartu** , baina bizitzak azkenean beti egiten digu ihes, neuri orain gertatu zaidan bezala. Joan Mari Irigoien

Setherentzat, iragana **arrastoan sartuta** edukitzea zen etorkizuna. Anton Garikano

Gogoan dut Agure Jaunak zer-nola lagundu izan zion beti Matti **arrastoan sartzen** . Mirentxu Larrañaga

Ezen gizon hark nekez errespetatuko zituela graduz eta kondizinoz zegozkion kortesi arauak, eta alferrik zebilela, ondorez, hura **arrastoan sartu** nahian. Joan Mari Irigoien

Eskatzailea **arrastoan sartzen** hasten zen orduan: ez ote zuen eskupekorik eman behar izango? Jose Morales

Fabrikan zailtzea nahi dut, gogor egin nahi diot ea **arrastoan sartzen** dudan. Jon Maia

Izan ere, joera **arrastoan sartuta** edukitzeko ihesaldiak direlakoan nago, beharrezkoak barne-orekari eusteko. Migel Angel Mintegi

Dena dela, gehiegi ari naiz urruntzen nire hizpidetik, txalupa xume hau ez baina gutxienez baporea behar duten ur handitan sartuz gainera, eta hobe izango dut, horrenbestez, berriz ere **arrastoan sartzea** , neure bidetxidorrera itzultzea. Xabier Mendiguren Elizegi

6 *oin arrasto*

Patriciaren **oin arrastoak** zaldi batenak bezain handiak ziren elur gero eta lodiagoan. Koro Navarro

Santa Kruzek eta bere mutilek Aranora elurretan **oin-arrastorik** utzi gabe egin zuten bidaiarena... Anjel Lertxundi

Belauniko jarri zen lurrean eta hurbil-hurbiletik miatu zuen ingurua, kandela baten argitan, **oin-arrastoren** bat topatzeko esperantzarekin. Julen Gabiria

Gauza bera diote San Joanengatik: hiru urrats egin omen zituen Bermeotik Gaztelugatxera eta han omen daude **oin-arrastoak** . J.M. Olaizola "Txiliku"

7 *urak arrastoan sartu* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Urak arrastoan sartu ez. ETC-prentsa

Azkenean, **urak arrastoan sartu** ziren, eta AEBek buelta eman zioten partidari. ETC-prentsa

Esan genezake **urak arrastoan sartu** direla. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrasto ahulak (3); **arrasto arrosa** (3); **arrasto bakarra** (5); **arrasto bat** (55); **arrasto bat baino** (4); **arrasto bat utzi** (3); **arrasto baten** (3); **arrasto batez** (3); **arrasto batzuk** (14); **arrasto beltz** (3); **arrasto bila** (8); **arrasto gehiago** (6); **arrasto gorri** (3); **arrasto gorriak** (3); **arrasto gutxi** (5); **arrasto guztiak** (17); **arrasto haiek** (6); **arrasto handia** (5); **arrasto handia utzi** (4); **arrasto handirik** (5); **arrasto hori** (4); **arrasto horiek** (7); **arrasto horretan** (3); **arrasto iluna** (3); **arrasto ilunak** (5); **arrasto izpirik** (3); **arrasto luzea** (3); **arrasto mehe** (3); **arrasto nabarmena** (4); **arrasto nabarmena utzi** (3); **arrasto nabarmenak** (5); **arrasto nabarmenik** (3); **arrasto oro** (4); **arrasto sakona** (18); **arrasto sakona utzi** (12); **arrasto sakonak** (3); **arrasto txikienik** (6); **arrasto txikienik ere** (5); **arrasto zuri** (3); **beste arrasto batzuk** (3); **bi arrasto** (5); **edozein arrasto** (4); **gaineko arrasto** (3); **hainbat arrasto** (3); **haren arrasto** (3); **historian arrasto** (3); **horren arrasto** (3); **ke arrasto** (3); **odol arrasto** (10); **pentsamendu batzuen arrasto** (3); **tortura arrasto** (3); **ur arrasto** (3); **utzitako arrasto** (7)

arrastoa atera (3); **arrastoa aurkitu** (11); **arrastoa galdu** (11); **arrastoa geratzen** (3); **arrastoa jarraitu** (7); **arrastoa jarraitzen** (3); **arrastoa topatzen** (3); **arrastoa utzi** (30); **arrastoa uzteko** (4); **arrastoa uzten** (15); **arrastoa uzten ari** (3); **azken arrastoa** (5); **bere arrastoa utzi** (4); **beren arrastoa** (4); **erdiko arrastoa** (3); **haren arrastoa galdu** (3); **lehen arrastoa** (5); **odol arrastoa** (5); **utzi duen arrastoa** (3); **utzitako arrastoa** (14)

arrastoak ageri (8); **arrastoak atzeman** (4); **arrastoak aurkitu** (30); **arrastoak bilatzeko** (5); **arrastoak eginez** (3); **arrastoak ezabatu** (5); **arrastoak garbitzen** (3); **arrastoak ikus** (5); **arrastoak ikusi** (6); **arrastoak izan** (3); **arrastoak nabari** (3); **arrastoak nonahi** (4); **arrastoak oro** (3); **arrastoak utzi** (4); **arrastoak zeuden** (4); **arrastoak zeuzkan** (3); **arrastoak zituen** (5); **arrastoak zituzten** (6); **azken arrastoak** (4); **bala arrastoak** (3); **botika horren arrastoak** (3); **hanka arrastoak** (5); **haren arrastoak** (4); **hatz arrastoak** (4); **horren arrastoak** (8); **lehen arrastoak** (4); **odol arrastoak** (23); **oin arrastoak** (3); **oroimen arrastoak** (3); **sufre sulfatoaren arrastoak** (3); **sulfatoaren arrastoak** (3); **tortura arrastoak** (7); **tortura arrastoak zituen** (3); **ur arrastoak** (3); **utzitako arrastoak** (11); **zirela arrastoak** (3)

arrastoan ibiltzea (4); **arrastoan sartu** (7); **garaipenaren arrastoan** (3)

arrastoaren atzetik (20); **arrastoaren bila** (5); **haren arrastoaren** (6); **haren arrastoaren atzetik** (6); **utzitako arrastoaren** (3)

arrastoari jarraitu (7); **arrastoari jarraituz** (3); **arrastoari jarraitzeko** (4); **arrastoari jarraitzen** (3); **arrastoari segika** (4); **haien arrastoari** (3)

arrastoen bila (9)

---

arrastoan *adlag* arrastoari jarraituz.

Batzuk badaude jada **arrastoan** . Berria - Kultura

Sindikatuaren arabera, "ugazaben **arrastoan** " dabiltza Eusko Jaurlaritzako, Eudeleko eta Foru Aldundietako agintariak Berria - Ekonomia

Pobreak bidez bide eta Ku Klux Klanekoak beltzen **arrastoan** zebiltzan urte haiek... ez ziren bederen izan berdintasunik handieneko urteak. Pablo Sastre

Euskaldunon Egunkaria-rekin zorretan, hark egindako **arrastoan** dabil Berria. Iñigo Aranbarri

Emakumerik ere bildu zen taldera haren **arrastoan** . Juan Garzia

Beste kuku batek joko ziokeen, noski, gorputzaren grinak asetzeak ilehoriaren **arrastoan** jartzeko aukera ematen bazion. Migel Angel Mintegi

Lan asko egin ziren ikurrinaren aldarrikapenaren inguruan, baina ez nuen bilatzen ari nintzenaren **arrastoan** jarriko ninduen ezer aurkitu. Alberto Barandiaren

Niretzat garbi zegoen Slytherinen oinordekoaren **arrastoan** zeundela zu. Iñaki Mendiguren

Hara, gauza bat garbi dago behintzat: Linok Bruno aipatu badu, zuek okerreko **arrastoan** jartzeagatik baino ez du egin, Elsa babestearren. Harkaitz Cano

Gure artean: zergatik zabilzkidate **arrastoan** inguruz inguru, arte-sare batera eraman nahian bezala? Juan Garzia

Agurra -top kanten **arrastoan** jarraitzeko- tristea izan zen. Bernardo Atxaga

Arrastoan zetorren gizona atari batean ezkutatu zen Josebaren geldierakoan, eta gero atzetik jarraitu zuen. Iñaki Zabaleta

Zer esan, hura **arrastoan** jarri eta ez zirikatzeko? Anton Garikano

Eskatzailea **arrastoan** sartzen hasten zen orduan: ez ote zuen eskupekorik eman behar izango? Jose Morales

Orain arte behintzat, euskarak lortu du bizirik irautea, euskara behekoak lortu du goiko hizkuntzen **arrastoan** ibiltzea. Koldo Zuazo

Juan Martin Elexpuruk eta Iban Arantzabalek lekuko garrantzitsuen **arrastoan** jarri gaituzte. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrastoan ibiltzea (4); **arrastoan sartu** (7); **arrastoan sartuta** (3); **arrastoan sartzea** (3); **arrastoan sartzeko** (6); **arrastoan sartzen** (5); **garaipenaren arrastoan** (3)

---

arrastro ik **arrasto**.

---

arrastu, arrats/arrastu, arrasten da/du *ad* gau heldu, ilundu.

Ilunabarrean zen, eguna **arrasten** denean, gauezko ilunpe eta goibelarekin. Xabier Kintana

---

arratiar *izlag/iz* Arratiakoa, Arratiari dagokiona; Arratiako biztanlea.

Portuan, Zorrotzaurren kokatutako La Aeronautica SAn entzun zituen lehenengoak **arratiarrak** izan ziren. Urtzi Urrutikoeetxea

Eta gogoan genuen gure zaharrek, **arratiarrekin** ikasita zabaldu zuten kanta hura. Txillardegi

---

arratoi 1 *iz* ugaztun karraskaria, saguaren antzekoa baina aski handiagoa, etxe, itsasontzi eta abarretan*(Rattus rattus)*, estoldetan *(R. norvegicus)*, larrean *(R. rattus frugivorus)*, uretan *(Arvicola sapidus)* bizi dena.

Mutiko horrek bere **arratoia** gaztelura eramaten badu -eta bere buruaz Ronen aldera keinu egin zuen-, isil-isilik joango naiz ni... Iñaki Mendiguren

Otsabideko komisarioaren **arratoi** ustelek uda hartan ez zuten hertsatu. Itxaro Borda

Ohitura finkoak zeuzkaten antzinatik, eta nekez aldatuko zituzten eguneroko zereginak: **arratoiak** harrapatu eta larrua kentzea, eta palmondoen azalekin sokak egitea, gero saltzeko hurbil pasatzen ziren karabanei. Jon Arretxe

Nahitara huts egin ote zuen, eta desengainu bat eman?; katuaren eta **arratoiaren** jostaketan ote zebilen berarekin? Patxi Zubizarreta

Handixeagoak ere bai, naski: zomorro, kakalardo, xinaurri, kukuso, zorri, pipi, euli, erle, liztor, eltxo, oti, zizare, har, labezomorro, **arratoi** eta oraino beste hameka. Jose Angel Irigaray

Arratoiren bat izango zela pentsatu nian eta, badaezpada ere inguruan begiratu nian, protektorakoren bat ote zebilen." Pablo Sastre

Arratoiak eta presondegian hain ugariak diren molde askotako zomorroak ere aienatu dira isilka. Xabier Montoia

Cannabisaren osagai kimikoek buruko tumore gaiztoak haztea eragozten dutela frogatu dute Madrilgo Unibertsitateko ikertzaileek **arratoietan** ; tumoreen elikatze sistemari erasotzen diote. Berria - Gaiak

Baina litekeena da, gizon-emakumeak desagertuko balira ere, lurraren gainean beren tokia hartuko duten izakiak, otso zein **arratoi** , hartz zein enara, beren hanken edo hegoen laguntzaz honaino etortzea, Ama Birjina ikustera... Felipe Juaristi

Baliteke gu lehoi burua duen sagua izatea, baina hobe da hori **arratoi** aurpegia duen lehoia izatea baino. Jon Muñoz

Arratoiek bezala egin zuten ihes. Aingeru Epaltza

Baliteke **arratoiren** bat paretatik irtetera ausartzea, baina Axenariok katilukada esne baino ez dio agindu. Itziar Otegi

2 ***arratoi txakur*** *iz* txakur txikia, saguak eta kidekoak harrapatzen trebea dena.

Baina ez da oso oker handia izango hura, oro har, **arratoi-txakurtzat** hartzea. Anton Garikano

Jaietako petardoek ere izutzen nautela, **arratoi-txakurrak** izutzen dituzten beste. Hasier Etxeberria

Ustekabean, **arratoi txakur** bat azaldu zen bidezidor hartatik zalapartan eta guri zaunkaka. Bernardo Atxaga

3 ***arratoi-zulo***

"Harrapatuko gaitiztek, oraingoan harrapatuko gaitiztek", egiten nuen neurekiko; jendeak eskola aldera egin zuen, eta hango komunetan eta eskaileretan aienatu ziren, baina hura **arratoi-zulo** hutsa zen. Juan Kruz Igerabide

Torealeku: Politikan, **arratoi-zulo** alegiazkoa, non politikariak bere jukutriekin borroka egiten duen. Xabier Olarra

"Harrapatuko gaitiztek, oraingoan harrapatuko gaitiztek", egiten nuen neurekiko; jendeak eskola aldera egin zuen, eta hango komunetan eta eskaileretan aienatu ziren, baina hura **arratoi** -zulo hutsa zen. Juan Kruz Igerabide

Ulergaitz samarra egin zitzaion halako **arratoi zuloan** bizi zen norbaitek bigarren etxebizitza bat edukitzea, eta are ulergaitzagoa bigarren etxe hori -harako hura baino argitsuagoa eta berriagoa, inondik ere- saltzea, bera han bizitzen geratuta. Harkaitz Cano

4 ***arratoi arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Arratoi arrunta ("Rattus norvegicus") muridae familiako karraskaria da. Arratoien artean ezagunena eta hedatuena da, kontinente guztietan Antartikan izan ezik, bizi dena. ETC-entziklopedia

Hiru urtetik gorako umeentzako ikuskizunean, **arratoi arrunt** bat da protagonista. ETC-prentsa

Laborategiko **arratoi arruntetan** , informazio-transferentzia sistema korapilatsu batek gidatzen ditu janari-bilaketari buruzko erabakiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Laborategiko arratoia, **arratoi arruntaren** (Rattus norvegicus) ondorengoa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Orduan, inguruan urik ez dagoen egoeretan zergatik deshidratatzen dira **arratoi arruntak** baina kanguru-arratoiak ez? ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***arratoi-belarri handi*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Ugaztunen artean, berriz, azpimarratzekoa da **arratoi-belarri handi** kiropteroa. ETC-prentsa

Hori gertatzen zaie, adibidez, arratoi belarri ertainari eta **arratoi belarri handiari** . ETC-prentsa

Arratoi-belarri **Arratoi-belarri handiaren** ("M. myotis") oso antzeko espeziea da, baina tamaina apur bat txikiagoa du. ETC-entziklopedia

6 ***arratoi garbiketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Hala ere, udal hauteskundeak hemendik gutxira izango direla ikusita, arraroa egiten zaigu Udalak atari guztietan jarritako ohar baten bidez jakinaraztea sei hilabeteko atzerapenarekin egin duela ezinbestekoa den **arratoi-garbiketa** . ETC-prentsa

Batek, nahiz eta gogo handirik gabe, **arratoi garbiketa** eta intsektu hiltzeko kanpaina bat itxaroten zuela aurpegiratu zion edo, gehienez jota, desinfekzioarena, baina hura ezetz. ETC-literatura, saiakera

7 ***arratoi hiltze***

Biok debekatzen dute **arratoi hiltzea** . Gotzon Garate

8 ***arratoi musketadun*** *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Hypsiprymnodontinae: **arratoi musketadun** martsupiala bakarrik hartzen du barne. Hau buztan biluzia duen eta zomorroak jateko ohitura duen espezie bakarra da. ETC-entziklopedia

Lursaguak Cricetidae familiako karraskari txikiak dira, Arvicolinae azpifamiliaren ataletako bat. Leminga eta **arratoi musketadunarekin** batera Arvicolinae azpifamilia osatzen du. Mundu osoan zehar 155 espezie lursagu sailkatu dira. ETC-entziklopedia

Sator arrunta, basasagua, Guenther lursagua, landa-lursagua, ekialdeko ur-arratoia, **arratoi musketaduna** , etxeko txolarrea eta usapal turkiarra zerrendan sartzea kritikatu dute. ETC-prentsa

Animalia basatietan egindako ikerketek erakutsi dutenez, kastoreak eta **arratoi musketadunak** Giardiaren garraiatzaile nagusiak dira, eta horien bidez irits daitezke zelulak edo kisteak ur-hornidura etara. ETC-zientzia, zuzenbidea

Untxi, **arratoi musketadun** , zarigueia eta arrain hilak ere aurkitu zituzten, ehunka, eta bertako eskoletako batek intsektizidarekin pozoitutako hegaztien bilduma egin zuen ikerketa zientifiko baterako. ETC-literatura, saiakera

Bisoi, mapatxe eta kastore larru bakanei jaramon egin barik, O?Keefek pilatan ordenatu zituen **arratoi musketadunak** . ETC-literatura, saiakera

Kontatu nion garraio-enpresa hiru kamioi izatetik dozena bat izatera pasatu zela, eta Betek **arratoi musketadunaren** larruzko beroki bat erosi zuela, eta negozioa handitu

zuela, eta orain etxean jarri zuela Edertasun Zentroa. ETC-literatura, saiakera

9 ***arratoi-pozoi*** *(corpusean ez dago; ETCn **32** agerraldi)*

Talio metala aurkitu dute haren odolean, **arratoi pozoian** erabiltzen den elementua. ETC-prentsa

Hipotesi hori, adibidez, arratoia **arratoi-pozoi** dosi handi bat jan duelako hil dela izan daiteke. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, whiski botilaren barruan elefante afrikar bat hiltzeko adina **arratoi-pozoi** baitzuen xiringa batez sartuta. ETC-literatura, saiakera

Inork oztopotzat joko luke, beharbada, ostiak **arratoi-pozoiz** hautseztatuta molinistak ere hiltzeko arriskua egongo litzatekeela. ETC-literatura, saiakera

Norbaitek **arratoi-pozoia** nahasi zuen bere drogan. ETC-literatura, saiakera

Eta etxera itzuli bezain laster, surtara botatzen zuten **arratoi pozoia**, eta gero medikuarengana joaten ziren umea ez txertatzeko eskatzera, "hazizurriak eduki berriak zituelako" edo "behar bezala jaten ez zenez, oso makal zegoelako". ETC-literatura, saiakera

Arratoi-pozoi usainik ere antzeman du, baina ez du ezer esan. ETC-literatura, saiakera

Benetan kondenatzen banaute, **arratoi-pozoia** irentsiko diat eta kitto... ETC-literatura, saiakera

Arratoi-pozoia egon zitekeen emakumeen heriotzaren atzean. ETC-entziklopedia

Oso toxikoa da eta **arratoi-pozoi** eta intsektizida gisa erabili izan da, baina minbizia sor dezakeela uste denetik, erabilera hau asko murriztu da edo debekatu egin da zenbait herrialdetan. ETC-entziklopedia

10 ***xabiroi-arratoi*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Xabiroi arratoia ("Uranoscopus scaber") "Uranoscopus" generoko animalia da. Arrainen barruko Uranoscopidae familian sailkatzen da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arratoi aurpegia** (2); **arratoi bat** (21); **arratoi batzuk** (4); **arratoi benenoa** (2); **arratoi bihurtu** (2); **arratoi bihurtzen** (2); **arratoi gris** (2); **arratoi habia** (2); **arratoi handia** (2); **arratoi handiak** (2); **arratoi handiaren** (2); **arratoi heste** (2); **arratoi heste zornatuenak** (2); **arratoi tonikoa** (4); **arratoi tonikoa eman** (2); **arratoi txakur** (2); **arratoi txakurra** (2); **arratoi zakur** (6); **arratoi zakur bat** (4); **arratoi zakurrak** (3); **arratoi zulo** (5); **bi arratoi** (3); **lo zegoen arratoi** (2)
>
> **arratoiak akabatzeko hautsak** (2); **arratoiak harrapatu** (2); **katuak eta arratoiak** (3); **sagu eta arratoiak** (2); **saguak eta arratoiak** (2)
>
> **basa arratoien** (2)
>
> **arratoiren bat** (4)

---

arratoitzar *iz* arratoi handia.

Konturatu gabe sekulako **arratoitzar** baten gainean jarri eskua; hark berebiziko hozkada bat eman zion besoan. Josu Zabaleta

Gainera, hirietako estolderietan dioten bezalako **arratoitzarrak** baldin badaude, oso litekeena zen katuak ere halakoxeak izatea. Patxi Zubizarreta

---

arratoizulo *iz* ezkutaleku oso txikia.

Eta bere **arratoizulotik** irtenda kalera egin zuen. Edorta Jimenez

Lau kilometro koadroko eremu batean daude eta ez gara gai **arratoizulo** madarikatu horretan kiratsa darion zerri madarikatu bat aurkitzeko? Harkaitz Cano

---

arrats *(ETCn **11.932** agerraldi)* **1** *iz* arratsaldea.

Maiatzeko lehen **arratsetako** bat iluntzen hasi da. Xabier Paya

Debekatua dute **arratseko** zortzietatik aurrera beren etxeetako lorategietan edo beren lagunenetan eserita egotea. Josu Zabaleta

Kontua da Nanak libre zeukala **arrats** hura eta, beraz, Darling andreak bainatu zituen umeak, eta gero ohean sartu zituen eta abestu egin zien. Julen Gabiria

Arratsetan askotan, ilunabarrean, etxetik atera eta malekoitik itzulia egiten omen zuten, emakumea aurretik eta senarra atzetik, jeneralean elkarri hitzik egin gabe baina bakean, seme-alabarik gabeko bikoteak ibiltzen diren tankeran. Joxean Agirre

Batzuetan, **arratsean** batez ere, kartetan aritzen ziren suren baten alboan lagun talde txikiak, kartak zikin banaturik esku zikinetan. Joseba Sarrionandia

Santiagoko aireportura iritsi nintzen **arrats** huraxe izan zen Enrique Lihnek lurraren gainean egin zuen azkena. Imanol Zurutuza

-Utzi kontuak ateratzen: ba, oker ez banago, atzo bertan, ostiralean, **arratseko** kontsultara etorri behar zuen. Antton Olano

Arratsean gauza garrantzitsu bat ikusi behar genuela esan zigun aitak, eta Lehorreko Atera eraman gintuen. Txillardegi

Demagun, beraz, haur batek atzo goizean Petri ikusi duela eta Paulo eguerditan eta **arratsean** Simeon eta goiz honetan berriz Petri. Piarres Xarriton

Bistan denez, istripua gertatzean, urtarrilaren 2ko **arratsean**, argi eta garbi eman zion poliziari, bai bere buruaren, bai izandako istripuaren berri; gero, ordea, buruko min gero eta handiagoa zuenez, etxera joan zen. Xabier Olarra

Besta **arrats** batez gertatu ixtorioa da, Maddalen hil-eta ondoko urtea izan behar zen. Janbattitt Dirassar

Don Marco erantzunen baten zain izango dut **arratserako**. Joxemari Urteaga

Benetako irabazlea gizarte zibila izan zen, martxoaren 13ko **arrats** hartan egiaren alde eta gerraren kontra mobilizatu zen jendetza hura. Txema Ramirez de la Piscina

Zorion-txartelik ez, oparirik ere ez, eta existituko ez balitz bezala eman beharko zuen **arratsa**. Iñaki Mendiguren

Beste **arrats** batean, Poliziaren furgonetak auzoko beste aldean bilduta zeudela esanez etorri zitzaigun gazte bat. Urtzi Urrutikoeetxea

Arratsean lo egiteko aterbetzat, olezko txabola zatar batzuk baino ez dituzte. Jokin Urain

Ezin lasaitu izan nintzen **arrats** hartan guztian. Joxan Elosegi

- Eurimako: hik eta biok apustu egingo bagenu udan, egunak luzeak direnean, belarra igitaiaz mozten, **arratsa** arte batere jan gabe; edo behiei aidaka ibili beharra balego goldean..., ikusiko huke nor den gehiago. Juan Kruz Igerabide

Biharamunean, ganberaburuaren etxean eman zuen Txitxikovek **arratsa**. Jose Morales

Harritzeko da goizetik **arratserat** zenbat har, zizai eta ulitxa kalitzen eta garbitzen duen! Patziku Perurena

Eta gaur **arratsean**, jokaera nardagarria izan da zurea. Xabier Olarra

Bart **arratsean**, Schwob eta biok, etsi gaiztoak harturik geunden, eta une batez egon naiz ez ote genuen leihotik hegan ospa egin behar saguzar biren gisa. Juan Garzia

Arratsetan, udan freskurara ateratzen ziren jendeak. Menane Oxandabaratz

Kirrinka batek **arratseko** lasaitasuna hautsi zuen, eta sargoria, eta siesta arina, eta irakurketa. Karlos Linazasoro

Arratsean ikusiko da horiek zer ematen duten. Edorta Jimenez

Donostiako udazken **arrats** hezeetan gertatzen zitzaizun hura hasi zaizu gertatzen W.n ere. Lourdes Oñederra

Uztaileko **arrats** batean, aita Bagdad Irratia entzuten ari zen, Herriaren Ahotsa, eta, aldi berean, kurduerara itzultzen zigun dena. Juan Kruz Igerabide

Arratseko argi apalarekin asmatu behar du, baina auto handiaren aurreko eserlekuetan keinuka ari direla iruditu zaio. Alberto Barandiaren

Zoazte atseden hartzera; **arratsean** ospakizuna dugu. Juan Garzia

Halako batean, ez nahi bezain azkar, iritsi zen Margeren egonaldiaren azken **arratsa**. Iñaki Mendiguren

Arrats osoa pasatzen dute lur gainean kokoriko, beren lastozko kapelutzarren azpian, perretxikoak bezain geldirik, argirik gabe ere pozik, isilik. Joxe Austin Arrieta

2 (izenondoekin)

Eguna freskatzen ari zuen -ia bi 2.000 metro gora geunden-, eta **arrats** luzean eltxoak ziztaka eta kilkerrak kir-kir hots etengabean ari ziren gure inguruan. Xabier Olarra

Kanpadenda barruan, **arrats** sargori batean, Irati ahoz behera jarri zen, eta ipurmasail distiratsuak eskaini zizkidan. Lander Garro

Patxi Ibarluzea pilotu bilakatu zela Aliciak esan dit, 2002ko abuztuko **arrats** eder batez Etxebarriako familia-etxean izandako hitzorduan. Edorta Jimenez

Egun eta **arrats** luzeen segida luze-luze batez biziko gara. Iban Zaldua

Ehunka negu **arrats** euritsu beharko ziren paper pila handi haiek ongi miatzeko, zaila baitzen kontsultatu gabe garrantzitsuak edo arruntak, gorde beharrekoak edo botatzekoak, ziren erabakitzea. Joxan Elosegi

Orain **arrats** epelaren iluna argi eztiek goxoki sistatzen dute eta gauaren bakeari etxe barneetatik ateratu den jendetzaren hizketa marmarikatuak harmonia bat emaiten dio [...]. Piarres Aintziart

Gogoratzen dut **arrats** izugarri haietako bat. Monika Etxebarria

Paper ilunez estalitako leihoak itxi dizkiogu kanpoan zen udaberriko **arrats** urdinxka eta lanbrotsuari. Urtzi Urrutikoetxea

Donostiako udazken **arrats** hezeetan gertatzen zitzaizun hura hasi zaizu gertatzen W.n ere. Lourdes Oñederra

Arrats gorria zen, eta karrika haietako mugimendua izan zen ene arreta piztu zuèn lehenengo gauza. Joan Mari Irigoien

Haietako **arrats** ilun eta hotz batean, Sethek arbi-aza bat lau zatitan egin eta egosten jarri zuen. Anton Garikano

Antton Ihartzegarairen urteak, urte baliagarriak, itzuri egin zaizkiola: Valcornejan, Puerton, **arrats** aratz etsigarri geldo haietan... Txillardegi

Gibelean gelditu dira gizon arrotzen oihu eta espantuak, gibelean eldarnioz beteriko gauak ere, **arrats** gorri ikaragarriak. Filipe Bidart

Abuztuko **arrats** gris epela etorria zen hirira eta aire leun epel bat zebilen kaleetan, udaren oroigarri. Irene Aldasoro

2 ***arrats apal*** *(orobat **arratsapal** g.er.)* arrastiria, arratsaldeko azken orduak.

Arrats apal batez, "Lost Days" motelaren harrera gunean izena -faltsua bistan dena- ematen ari zela, urdin-beltzez beztitu lau gizon hurbildu zitzaizkion. Itxaro Borda

Zorionez, **arrats apal** batzuetan gelazaina lokartzen da, eta bakarrik oheratuko naizela erraten diot, joan dadin eta bizturik utz dezan argia. Jon Muñoz

Basa herri barbaro hartatik urruntzeko, ordurik agerikoena hautatu nuen, **arrats apala** , ia gizon guztiak jalgitzen baitira artezi eta putzuetatik, eta sartaldeari beha jartzen, hura ikusi gabe. Juan Garzia

Arrats apala heldurik, arrakasta berberaz egin zuen bere lasterketa hirukoitza. Jon Muñoz

Arrats apalean ez zen seguru sentitzen. Itxaro Borda

Arrats apalean kasernara itzultzen zaretelarik, ur gazitan sartu behar izaten dituzue. Xabier Montoia

Baina, atzo, **arrats apalean** ikusi dudalarik mendixkatik hiria, asmoz Santiagon nintzen. Piarres Aintziart

Beinatek zinez maite zuen **arrats apaletan** , eguzkiak gorritzen zituen mendi arteka gordeetan gauerako borobilean kuzkurtzen zirenean Georgesekin hitz egitea. Itxaro Borda

Arrats apaleko zeru ubelaren kontra altxaturik, gurutze bat dirudi. Xabier Montoia

Erran behar dut izugarri jostatzen nindutela **arrats apaleko** partida haiek, etxeko leiho guztiak bonbardaketen beldurrez itxita eta kandela dardarati baten argi motelak piezen itzalak luzatu eta dantzarazten zituela. Alberto Ladron Arana

Marilynen azken **arrats apaleko** gertakariak, kronologikoki eta mentalki zerrendatzen nituen: hiru gizon hurbildu zitzaizkion etxera, gerora ikerketak haietarik bat Bob zela baieztatuko zuela. Itxaro Borda

Delako alaitasun edo lasaitasun hori, beranduko helenismoaren garaiko "alaitasun grekoa", ezin ote liteke izan gainbeheraren, nekearen, eritasunaren seinale?, **arrats-apaleko** argi gorri ilaunaren pare? Iñaki Segurola

Arrats apalerako beste hitzordu bat iragarria zitzaidan eta ez nuen espantu egitekorik, eguna ahal bezainbat kasu eginez pasatzekoa nuela gogoan atxikiz. Itxaro Borda

Pentsa ez nintzenez gutxi bozkariatu Xaxik, **arrats apal** berde batez bulegora deitu ninduelarik, kuxeluz bezala, linea kontrola pean bailitzan, ahapeka, zerbitzu berezi baten galdatzeko. Itxaro Borda

Oharteman dituzu, **arratsapalean** , Paris inguruko gure bide handietan, karrozaren lauhazkak zure aitzinean jarraika agerrarazten eta ezkutarazten dituen zumar guztien soslai izugarriak? Koldo Izagirre

Arratsapaletan Nîmes-ko aldirietan barrena ibiltzea maite zuen; koaderno bat eraman ohi zuen aldean, eta su alai bat egiten. Juan Garzia

Casin Cholet-ek ganbera-zulo koxkor bat aurkitu zuen bere neskalagunarentzat, Trois-Pucelles-en ondoan, eta hara egiten zion bisita **arratsapalean** . Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eguzkia zaldi bat zen **arrats** -min zaurituan. Karlos Linazasoro

Taberna batean daude Txetxu eta Marta, **arrats** partean sarturik dagoeneko. Xabier Mendiguren Elizegi

7 Oso ondo antzematen da hori Venus planetaren kasuan: eguzkiaren atzetik ibiltzen da, eta eguzkia sartzen denean zeruan ikusten da Venus distira garbiarekin; orduan, **arrats** -izarra esaten zaio; beste garai batean, ordea, eguzkiaren aurretik ibiltzen da eta egunsentiaren aurretik azaltzen da; orduan, artizarra esaten zaio. Santiago Iruretagoiena

Arrats giroak laztan egiten digu. Edorta Jimenez

Udaberriko **arrats** -usaina zuen denak. Fernando Rey

Ikusgarria da hiria **arrats** partean, zerua abantxu denean eta ubideetan **arrats** kolorea zabaltzen denean eta ibai gainak gorriz kutsatzen direnean. Felipe Juaristi

Emazte santuaren proposamenez urte luzeetan zelibato-bizitza egin ondoren, biak egun berean igaro ziren Jaunarengana, andrea goizean eta senarra arratsaldean, goiz-opari bezala bata, **arrats** -opari bezala bestea. Askoren artean

Isilik jaitsi ginen hasieran, jada **arrats** -hautsek iluntzen hasia zuten bide estuan zehar, Lauaxeta aurretik eta ni haren ondoren. Juan Luis Zabala

4 ***arrats askari*** *(corpusean **aratsaskari** soilik)*

Ibiakoitzean, aratsaldeko 4etan adinetakoen **aratsaskaria** , 7etarik goiti oren alegerak, ondotik Dominic Earl-en kontzertua eta Samainekin dantzaldia. Herria

5 ***arrats behera***

Zilegi al da **arrats-behera** ederrei begia eta gogoa ematea? Iñaki Iñurrieta

Ez zegoen prest hura bere lehenbiziko lerroa zela aitortzeko, inori ere ez, baina are gutxiago **arrats beherako** begidun Koldo horri. Sonia Gonzalez

Baina ezin dut ezer gogoratu, elurra soilik, eta jendez betetako kafetegia, non **arrats beheran** esertzen ginen eta disko-jogailuan norbaitek Si j'avais un marteau, ce serait le bonheur. Joseba Urteaga

Bat-batean iluntzen hasi zuen, negu gordineko **arrats behera** bat balitz baino azkarrago eta trinkoago. Anjel Lertxundi

Arrats beheran bakarrik geratu nintzen gelan. Joseba Urteaga

Arrats beherak itsasgora dakar. Anjel Lertxundi

- Ene gazte denboran -erran zuen Erregek- ekia iraungitzen den alderantz, **arrats-beherarantz** nabigatu nian. Juan Garzia

6 ***arrats-beherati***

Poesia itun, **arrats-beherati** eta ez horratik halako ederrak idaztea, inguruan mundua sugarretan zegoela, ez zitzaigun iruditzen ez harrigarri eta ez lotsagarri ere. Juan Garzia

7 ***arratsera arte*** *(orobat **arratserarte** g.er.)*

Ondoren, berentzat eta apaizentzat prestatu zuten lebitarrek Pazko-afaria; izan ere, Aaronen ondorengo ziren apaizek **arratsera arte** jardun zuten opariak eta gantzak erretzen. Elizen arteko biblia

Erregea, berriz, zuhaitz batetik zintzilikatu zuen **arratsera arte** ; eguzkia sartzean, gorpua zuhaitzetik eraisteko agindu zuen Josuek. Elizen arteko biblia

Uretan sartuko duzue eta kutsaturik gelditu da **arratsera arte** ; gero, garbi bihurtuko da. Elizen arteko biblia

Itxirik dagoen aldian etxe hartan sartzen dena kutsaturik gelditu da **arratsera arte** . Elizen arteko biblia

Egun hartan oso gogorra izan zen gudua; Israelgo erregeak bere gudu-gurdian zutik egon behar izan zuen **arratserarte** , siriarrei aurre eginez. gin zen. Elizen arteko biblia

8 ***goiz-arrats***

Bost egun hauetan 9 ordu eta 17 minutu tokatzen zaizkio egunari, **goiz-arratsak** hartuta. Pello Zabala

Eta orain bi laiko, **goiz arratsetako** dei luzeetan ene ondoan nituenak, tallurgoan hasi aitzin. Marzel Etxehandi

Airearen freskoa **goiz-arrats**, arratsaldeko beroa, haize hegoak ufaturik, iratzeen usain marroia, arto ximelduaren karraska sinkulina, eguzkiaren joan hostoak dardaran ari direla, gaztainondoetatik garbotsak lurrean punpatuz, pilota torta ziztatzaile baten arrabots motelarekin, pentzeen berde urguilutsua, udako egarrien ondotik beren kontentua denei erakutsiz, gero, [...]. Piarres Aintziart

9 *goizetik arrats* *(orobat* *goizetik arats)*

Goizetik arrats, kantari. Daniel Landart

Lan eta lan, **goizetik** arrats ostatura zetozkion jendeak haia-haia zerbitzatzen. Itxaro Borda

Mendi horietan beretan aste guzia, igandetan salbu, **goizetik arrats** han zabiltzan oihanetako langileak. Herria

Goizetik arats, eta aratsetan ere oraino, zernahi lasterkari, jende frango bestalde bazterretik sustatzaile! Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrats aldera (4); **arrats apal** (4); **arrats apalean** (5); **arrats apaleko** (4); **arrats apaletan** (4); **arrats arte** (4); **arrats bat** (9); **arrats batean** (46); **arrats batez** (44); **arrats batez erran** (3); **arrats batzuetan** (4); **arrats beheran** (6); **arrats beherean** (3); **arrats beran** (3); **arrats berean** (6); **arrats berezi** (4); **arrats eder** (7); **arrats eder baten** (4); **arrats euri** (3); **arrats euritsu** (3); **arrats gorri** (11); **arrats gorrixka** (3); **arrats goxo** (7); **arrats guzia** (3); **arrats guziez** (5); **arrats guziz** (21); **arrats hartako** (4); **arrats hartan** (91); **arrats hartan berean** (6); **arrats hartan bertan** (6); **arrats hartan ez** (3); **arrats hau** (3); **arrats honetan** (18); **arrats horretan** (8); **arrats hortan** (5); **arrats huntan** (8); **arrats hura** (4); **arrats on** (3); **arrats oso** (3); **arrats osoa** (7); **arrats osoan** (5); **beste arrats batez** (3); **goiz arrats** (3); **goiz eta arrats** (7); **goizetik arrats** (20); **igande arrats** (7); **kasik arrats** (3); **kasik arrats guziz** (3); **larunbat arrats** (7); **lehen arrats** (3); **neguko arrats** (3); **ortzegun arrats** (7); **ortzegun arrats huntan** (4); **ortzirale arrats** (4); **ostegun arrats** (4); **ostiral arrats** (7); **ostiral arrats honetan** (3); **udaberriko arrats** (3)

arratsa arte (14); **atzo arratsa** (3); **igande arratsa** (3); **larunbat arratsa** (5); **ostiral arratsa** (3)

---

arratsalde *(ETCn **65.127** agerraldi; orobat **aratsalde** g.er.)* **1** *iz* eguerditik ilunabarrera doan denbora. ik **arrastiri**; **eguarte**; **arrats**.

Andoni, gaur **arratsaldean**, hemen afaritara bildu garenetariko asko eta asko inguru honetan egin behar duten errausketa-plantaren aurkako manifestazioan izan gara. Andoni Egaña

Susmoa hartu zion Samarkandako merkatariak, **arratsalde** osoan beste oihalik saldu ez zuenean, Herioa bera zela agure itsua, eta bila etorriko zitzaiola. Imanol Zurutuza

Aitak, nora eta gerrara abiatu behar zuen **arratsaldean**. Joseba Sarrionandia

-Hara, hara, **arratsalde** osoa etxetik kanpo. Jon Muñoz

Halaxe lagundu genion, gustura lagundu ere, **arratsalde** pare batez, artean teologia ikasle ginenok, saski ttiki edo kopa-saskika lurra goi-goiko porlan-zoko hartaraino igotzen. Pello Zabala

Arratsaldez lorategian egingo dut lan... Lopez de Arana

Arratsaldea etxezuloan pasatzen genuen: ama eta gu senideok mahai inguruan, eta aita etxearen beste muturrean irakurtzen. Fernando Rey

Arratsalde batez, beste kalonje baten etxean afaldu ondoren, bertan gelditu zen gaua pasatzera. Askoren artean

Nondik datorkizu garai bateko igande **arratsaldetako** bezpera-kantu haiek bezain gai gastatu horren arreta? Anjel Lertxundi

-Berak agindu dik etortzeko? Ikusten dudan legez telegrafoak lan ederra egin dik **arratsaldean**. Edorta Jimenez

Emmak erran zigun, funerariumeko zerbitzuen arabera oraindik bi posibilitate bazirela: ehorzketa, edo ostegun **arratsaldean** edo ostiral goizean... Daniel Landart

"Ezin liteke", pentsatu nuen neure artean, **arratsaldeko** enkontruak susmo beltzenak burura ekarrita, eta atea zabaldu nuen. Inazio Mujika Iraola

Eta **arratsalde** bat opatu nion Aqualand aldean neuri buruari. Joxan Elosegi

Arratsaldeko laurak dira, eta Elena sartu da kontsultan; urduri dago, dardarka. Luis Elberdin

Arratsaldeetan oso leku lasaia izaten zen hura gehienetan, eta gustura hitz egin zezaketen. Fernando Morillo

Apirileko **arratsalde** bat zen, berandu samar. Koro Navarro

Goizetan eta **arratsaldeetan**, mutikoak hederrera eraman eta hederretik ekartzen zituen. Koro Navarro

Larunbat **arratsaldeetan**, nire testua muntatu eta gero azken orduko zuzenketekin zoratu dudan Pantxike Agirreri. Iñigo Aranbarri

Noizbait ere, **arratsalde** batean, Sorikera ailegatu ziren, Ahmeten herrixkara. Fernando Rey

Berandu iristen banaiz, zigortu egingo naute, eta ezin izango dut **arratsaldean** idazten jarraitu. Anjel Lertxundi

Abuztuko **arratsalde** eder hartan Donostiatik etorria zen. Joseba Zulaika

-Gaur **arratsaldean** batzarra izango da herrian; Otsoak zaindari taldeak osatzeko proposatuko du eta... Joanes Urkixo

-Arratsalderako prest izango al dituzu? Jasone Osoro

Honekin batera igortzen dizut atzo **arratsaldean** akitu nuen lantxo hau, dokumentu gisa atxikia, zure interesekoa izan daitekeelakoanJ. Pello Salaburu

Nekatua zuen mihia, **arratsalde** osoan hizketan aritu baitzen Dorset Streeteko pub batean. Irene Aldasoro

Horregatik guztiagatik dutxatzen zen Matias **arratsaldean**; horregatik guztiagatik eta nagia ematen ziolako goizean dutxatzeak, dena esan behar bada. Unai Elorriaga

Aldudera joan ziren, **arratsaldeko** dantzaldira. Menane Oxandabaratz

Arratsaldean, zakur bat bezala, paseo bat egitera ateratzen nintzen, hau da, zakurrak ateratzen uzten bazidan. Fernando Rey

Obra laikoen jai **arratsaldeetara**, gehienbat, eta egarria ondo ase arte, jakina. Josu Zabaleta

Alferrik dute erlojuek **arratsaldeko** hirurak eta laurdenak seinalatzen. Joxerra Garzia

Gozoa da **arratsaldea**, gereziondoak loretan daude; zozabarren saldoek plazako zeru hodeirik gabea edertzen dute beren akrobazia alaiekin, Messerschmitt hegazkinen gisara. Anjel Lertxundi

Eta azken erabakia hartua zuen: hain hartua, non **arratsalde** hartan Donostiara joan baitzen, bidai txartelaren bila. Joan Mari Irigoien

Arratsaldea lo hil batean higatzen zuen, plastikozko ohe gogor batean xaal-xaala etzanik. Markos Zapiain

2 (izenondoekin)

Abuztuko **arratsalde** eder hartan Donostiatik etorria zen. Joseba Zulaika

Baina **arratsalde** ezti batez Maddalen zen kolpez sartu ene bihotzean, Maiderrek ez baitzuen dudarik gabe toki guzia hartua. Janbattitt Dirassar

Uste duzue yate bat daukan dirudunak udako **arratsalde** beroa belardi xume bateko loreen edertasuna ikusten igarotzeko ahalmena baduela? Pako Aristi

Arratsalde lasaiaren bakean, Oskarrek ederki entzuten zituen hiru soldaduen ahots ozenak. Alberto Ladron Arana

1980rako urte pare bat falta zela, uztaileko **arratsalde** sargori batean ailegatu nintzen zibilizazioaren azken portura, Tolosara. Joxean Sagaztizabal

Ez al dituzu maite New Orleanseko **arratsalde** euritsuetako ordu horiek, gure eskuetan orduak ez baina betikotasun puska txiki bat diruditenak, zer egin jakin gabe? Xabier Paya

Hasieran berba gutxi batzuk egin dizkit hoztasunez eta ez du haserre aurpegia kendu, harik eta bere iruzkinari, espero duela nik ahizpekin **arratsalde** atsegina pasa izana, ez naizela igo erantzun diodan arte. Urtzi Urrutikoetxea

[...] baina banekien baita ere barru-barruan nahiago nuela nik hori, nire **arratsalde** librea etxean bakarrik igarotzea baino. Joxean Agirre

Baina bere pertsonaiei Soniak egin zien egun eta **arratsalde** luzeen segida aspergarri eta beti berdinaren iragarpena ez zen bete. Iban Zaldua

Eriak are zaluago ari zitzaizkion ileetan hazkabozka udako **arratsalde** amaigabeetan, oiloak baratzean bezala. Itxaro Borda

Gero, noizbehinka, bakardadean, lagun minen konpainian, haiek ikuskatzen emango zituen igande **arratsalde** euritsuak. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hala ere, zeharo bakarrik sentitzen zen, **arratsalde** amaieran batez ere. Agustin Otsoa

Eta **arratsalde** bukaeran otordua egitera azaltzen nintzen aldiro, han egoten zen orduan ere mahairen batean. Matías Múgica

Orduan, ibiltokirako ateraldiak **arratsalde** hastapen-hastapenean metatzen zituzten, lehenbailehen bururatzeko, edo ateraldi anitz balin baziren, laburtzen zituzten, oren erdi

baten ordez hogoi minututara edo... Filipe Bidart

Bezperan ezarritako 40,99 dolarreko marka historikoa txiki geratu zen **arratsalde** hasieran: 18: 30etan 41,30 dolar balio zituen upelak eta 41,23 ordubete beranduago. Berria - Ekonomia

Ezen, atzo **arratsalde** erditsuan, ezbeharraren berri jakitetik 36 ordura, agintariek emandako datu bakanetatik bat zen ontzian zihoazen 1.415 bidaiarietatik 378 bizirik irten direla. Berria - Mundua

4 *arratsalde apal*

Arratsalde apaleko heltzen gira Villa-Maria-rat eta afaltzen gira euskal etxean pesta tokirat joan aintzin. Herria

Duela 23 urte, Turismo Gelan, **arratsalde apal** batez bilduak ginen, ilabetean behin ohi ginuen bezela, hamar bat adixkide. Herria

-Lehenengo lezionea -erran zidan, mahaiaren inguruan zeuden bi aulkietan esertzen ginela, mahai gainean zegoen mapamundiaren alde baterat, udazkeneko **arratsalde apal** epel batean -. Joan Mari Irigoien

Arratsalde apala da. Michel Oronoz

Arratsalde apalean ziztu bizian zabiltzan autoen azantzak hautematen nituen, karrikan goraki eleka ari ziren etorkinen aditz kolpatuak. Itxaro Borda

Katakumeak, katu jende guztiak bezala gauzalea baitzen, ez zuen **arratsalde apalean** lo egitera joan nahi. Gotzon Garate

Arratsalde apalean Eiherateko Zokora gidatu zituen urratsak. Itxaro Borda

Harat orduko, ez dut jakiten Magaliren herrirat treinik ez zela **arratsalde apalean** baizik! Janbattitt Dirassar

Lau lagun bildu ohi zineten **arratsalde apalean** : Artola, Oronoz, Haranburu eta laurak. Xabier Montoia

Arratsalde apal hartan talde bat ari zen musika klasikoa jotzen. Patxi Zubizarreta

-Mikel, gaur **arratsalde apalerako** euria izango dugu. Gotzon Garate

Arratsalde apalean oraino, Genovako presondegiko murru lodien gibelean zegoen gela hertsi batean, Markoren abots apala eta Rustichelloren lumak paperean egiten zuen zirrista entzun ziratekeen. Aurelia Arkotxa

1586an, ekainaren 21eko **arratsalde apalean** , Pincio muinoko bere etxean, Erroman hil zen, larunbatarekin, Martin Azpilkueta, Doktor Nafarra deitua. Piarres Xarriton

5 *arratsalde-askari*

Lan horien guzien ondotik bazen beti zerbait bazkari edo afari edo **arratsalde-askari** , omore hoberenean iragaiten zena, dena arralleria eta kantu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

6 *arratsalde erdi*

Arratsalde erdian , setioaren zailtasunen eta argitaletxea itxaroten dagoen nobelaren huskerien artean harturiko atsedenaldi batean, Raimundo Silva kalera irten zen haize pixka bat hartzera. Jon Alonso

Dama-taldea **arratsalde erdian** azaldu zen. Mirentxu Larrañaga

Besterik apenas onartu da, atzo, igandea, **arratsalde erdirantz** Francoren aurkako erabakia onartu ostean azken orduko premiek beste gai jakin denak Konferentzia honen ostean sortzekoa den Kontseilu Betearazlearen esku utzi baitziren". Edorta Jimenez

Arratsalde erdian edo, zaldun zuri bat sartu zen Kameloteko gazteluan, bakar-bakarrik, ezkutaririk ere gabe. Juan Kruz Igerabide

Arratsalde erdirako atertu eta zerua oskarbi geratu zen. Joanes Urkixo

Orrondo **arratsalde erdian** fabrika batera bidali omen zuten trokel batekin, eta kanposantuko aldatsean gora zihoala, Manuel auto batetik irteten ikusi omen zuen, beste neska-mutil batekin. Pedro Alberdi

Baina **arratsalde erditik** aurrera gertatu zitzaion benetan zoriontsu egin zuena... Iñaki Mendiguren

Arratsalde erdian atea jo zuten, eta entzun zen. Josu Zabaleta

Beste kantu bati ekin zioten gero: "Maritxu, Maritxu, bizitzen badakizu, goizean goizean txokolatea, **arratsalde erdian** kopatxu... ". Anjel Lertxundi

Goian, lila koloreko ilbetea, **arratsalde erdian** . Joxe Austin Arrieta

Arratsalde erditan partitzen gira eta La Plata-rat joaiten hau 40 kilometrotan delarik. Herria

Brent upela 41,45 dolarreraino iritsi zen **arratsalde erdian** , iragan ostiralean baino %3 garestiago. Berria - Ekonomia

7 *arratsalde erditsu*

Arratsalde erditsutan etortzen zen eguneko azken "apairua. Eneko Bidegain

Arratsalde erditsutan , bertsuak aditu zituen; ikusliarren txaloak biltzen zituzten, alta ez zituzten Lizuniagako bentan bezala egoera politikoa, apez konstituzionalak, espainolak ez eta frantsesak ere aipatzen. Elena Touyarou

Ezen, atzo **arratsalde erditsuan** , ezbeharraren berri jakitetik 36 ordura, agintariek emandako datu bakanetatik bat zen ontzian zihoazen 1.415 bidaiarietatik 378 bizirik irten direla. Berria - Mundua

Bazkariaren ostean, Batzorde Nazional berria aurkeztuko dute eta idazkari nagusiaren hitzaldiarekin amaituko da biltzarra, **arratsalde erditsuan** . Berria - Ekonomia

Arratsalde erditsuan esnatu zelarik, garbiketak egin, eta otoitzean hasi zen. Patxi Zubizarreta

8 *arratsalde parte*

Arratsalde partean Carlosen gutun bat jaso zuen baina uko egin zion zabaltzeari. Bego Montorio

Askotan **arratsalde partean** lokuluska bat eginda nahikoa izaten omen du erabat berrituta gelditzeko. Pako Aristi

- **Arratsalde partean** etorri izan naiz, zuk alde egindakoan, nonbait. Paddy Rekalde

Arratsalde partean gure amak egunkaria irakurtzen zuen sofan etzanik. Fernando Rey

Hemen egon dun **arratsalde partean** , baina zer edo zer egitera joan behar izan din edo ez zakinat zer ostia kontatu didan. Sonia Gonzalez

Arratsalde partean bionbo bat erosi dut Chinatownen, besterik ez bada Prusiarraren txokoa eta nirea banantzeko. Harkaitz Cano

Tribuetako buruengana eraman zuten **arratsalde partean** , eta Lege zaharra zer zela-eta hautsi zuen galdetu zioten. Xabier Aranburu

Joan-etorri horretan atzoko igoerak ahuldu egin ziren ordea, **arratsalde partean** . Berria - Ekonomia

9 *arratsaldeko askari*

Partaide guziek gero **arratsaldeko askari** bat hartuko dute Euskaldunen karrikan, Baionako Olentzero elkarteen batasunak eskainirik. Herria

Bestalde Kanboko Herriko Etxeak gomita berezia egin du haur guzier, "Nemo" filma ikusi dute zinema gelan eta ondotik eskainitako **arratsaldeko askaria** gozatu. Herria

Zaunka elkorra aireratu eta Agustinek **arratsaldeko askarian** Petarre abantxu urkatu zuen. Itxaro Borda

Oroit haiza, hirekin izan baitzen haragi-keta eta gero biek **arratsaldeko askaria** hemen egin baitzenuten. Janbattitt Dirassar

Arratsaldeko askariaren tenoreak hor berean atzeman zituzten, sekulako ixtorioa pentsatu baitzuten, egia eta gezur, denetarik, esplikatzeko nolaz mutikoa berekilan zuten eta nahi zuela gau bat egon, beharbada gehiago. Michel Oronoz

10 *goiz eta arratsalde*

Bertako jendearen beldur baziren ere, lehengo zimentarrien gainean eraiki zuten eta erre-opariak eskaini zizkioten Jaunari **goiz eta arratsalde** . Elizen arteko biblia

Goiz eta arratsalde mendirate bat egiten dugu elkarrekin. Gotzon Garate

Nonbait goiz hartan kurrilo bikote bat, haizeak bidetik bazterturik, jaitsi omen zen jauregiko lorategira, eta lakuaren ondoan gelditu, gru-gruka, **goiz eta arratsalde** gru-gruka. Felipe Juaristi

Bost egun, **goiz eta arratsalde** , eman nituen apaletako borrokan. Txillardegi

Goiz eta arratsalde , bi aldiz egingo genuen joan-etorria, bazkaldu ere etxean egiten baikenuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Filistear hura egunero hurbiltzen zitzaien israeldarrei, **goiz eta arratsalde** , eta aurrean jartzen zitzaien. Jose Antonio Mujika

Eta hori jakitekoa eta jakin beharrekoa suertatzen delako egunero, **goiz eta arratsalde** , zerbitzu horren beharra sustatu eta zabaldu da zuhaitz tzar itzal luze zabaleko baten gisara. Pello Zabala

Goiz eta arratsalde izaten genituen eskolak, egunero hainbat irakaslerekin. Joxerra Garzia

Izan ere, senarra jubilatu zenetik, hantxe daukat etxean, **goiz eta arratsalde**, beti traban, Manolo Escobarren diskoak entzuten. Joan Mari Irigoien

Goiz eta arratsalde, gau eta egun. Harkaitz Cano

Eskerrak eman diezazkiogun **goiz eta arratsalde**, gau eta egun Jainkoari. Patxi Zubizarreta

Egunero, **goiz eta arratsalde**, erantzun hori jaso izanak txarrena pentsatzeko aukera eman zidan noski, eta impasse hartatik ateratzeko gogoa indartu zitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Eta zorte ona izan zuten itzulia egitera maletarik gabe abiatzea; kuartelean igaro zuten **goiz eta arratsalde** parte ona, eta bostak aldean askatu zituztenean, bila jarraitu zuten berriro segituan. Josu Zabaleta

11 *goiz eta arratsaldez*

Orduan egunero, **goiz eta arratsaldez**, ene kantua gero eta gorago emaiten hasi nintzen ibiltokian, euskaldun batek entzunen zukeelakoan eta ene kantuari arrapostu emanen. Filipe Bidart

Pentsio merke-merke batean hartu nuen ostatu, Britainiar Museoari bizkar, eta hango liburutegira joaten nintzen **goiz eta arratsaldez**, Munduaren Biltzarraren duin zatekeen hizkuntza baten bila. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arratsalde apalean** (20); **arratsalde bat** (29); **arratsalde batean** (108); **arratsalde batez** (74); **arratsalde eder** (12); **arratsalde erdian** (12); **arratsalde goxo** (20); **arratsalde hartako** (15); **arratsalde hartan** (177); **arratsalde hartan bertan** (25); **arratsalde hasieran** (31); **arratsalde honetan** (26); **arratsalde horretan** (21); **arratsalde on** (77); **arratsalde osoa** (60); **arratsalde osoa eman** (12); **arratsalde osoan** (52); **arratsalde partean** (32); **arratsalde pasa** (16); **atzo arratsalde** (16); **goiz eta arratsalde** (40); **igande arratsalde** (52); **larunbat arratsalde** (33); **udako arratsalde** (14)
>
> **arratsaldea arte** (12); **arratsaldea aurrera** (13); **arratsaldea zen** (14)
>
> **arratsaldean atxilotu** (12); **arratsaldean bertan** (25); **arratsaldean egin** (31); **arratsaldean eginiko** (12); **arratsaldean ere** (33); **arratsaldean gertatu** (11); **arratsaldean iritsi** (15); **arratsaldean jokatuko** (21); **arratsaldean zehar** (12); **atzo arratsaldean** (567); **bihar arratsaldean** (43); **biharamun arratsaldean** (14); **gaur arratsaldean** (269); **goizean eta arratsaldean** (13); **herenegun arratsaldean** (50)
>
> **igande arratsaldeetan** (20); **larunbat arratsaldeetan** (14)
>
> **arratsaldeko azken orduan** (11); **arratsaldeko bostak** (52); **arratsaldeko bostak aldera** (14); **arratsaldeko bostetan** (54); **arratsaldeko hirurak** (27); **arratsaldeko hiruretan** (32); **arratsaldeko laurak** (40); **arratsaldeko laurak aldera** (12); **arratsaldeko lauretan** (33); **arratsaldeko lehen orduan** (17); **arratsaldeko lehen orduetan** (12); **arratsaldeko ordu biak** (11); **arratsaldeko saioan** (14); **arratsaldeko seiak** (53); **arratsaldeko seietan** (40); **arratsaldeko zazpiak** (32); **arratsaldeko zazpietan** (22); **arratsaldeko zortziak** (17); **arratsaldeko zortzietan** (20); **atzo arratsaldeko** (50); **bihar arratsaldeko** (12); **gaur arratsaldeko** (53); **igande arratsaldeko** (26)
>
> **arratsaldera arte** (21)
>
> **gaur arratsalderako** (19)

---

arratsaldeko *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* *iz* arratsaldeko otordua. ik **askari**; **merienda**.

Askaria, **arratsaldekoa** edo merienda (Hego Euskal Herria Heg.) arratsaldean bazkari eta afariaren artean egiten den otordu arina da. Gehienetan otartekoa izaten da, baina badaude beste zenbait janari; adibidez, ingelesek tea hartzeko ohitura dute. ETC-entziklopedia

Askok eta askok aditu dutenaren arabera, Hostape elbarria arratsaldean azaldu omen zen Olatzarren, beste hainbestetan bezala, etxekoak **arratsaldekoa** egiten ari zirelarik eta afaria eskaini omen zioten, ohi bezala. ETC-literatura, saiakera

Arratsaldekoa bukatu aurretik oinaztargiek ederki erakutsi ziguten zer zetorren. ETC-literatura, saiakera

Aitor Ekidazu gonbidatzen genuen Casenave txokolategira, **arratsaldekoaren** hartzera. ETC-literatura, saiakera

Peñako lagunak eskiatzaile gisa jantzita zezen plazan, Mercaderesen asto batekin tragoak hartzen, edo zezen plazara instrumentuak eta **arratsaldekoa** eramateko, billabesa bat alokatu zutenekoa ikus daitezke. ETC-prentsa

---

arratsaldepean *adlag* arratsaldean.

Bunkerraren alboko harrietan eseri eta **arratsaldepean**, itsasoa han behean dardaraka ikusten zuten artean, Juan Bautistak poltsikotik atera eta celtas paketea eskaini zion Goiori. Joseba Sarrionandia

---

arratsaldero *adlag* arratsalde guztietan.

Arratsaldero elkartzen ginen klubean. Koro Navarro

Arratsaldero egunean-eguneango berri-emate idatzizko bat egin behar zen, eta gutunazal itxi baten barruan berari pertsonalki eskuratu, edo Loredana andreari, beraren idazkaria baitzen. Juan Garzia

Arratsaldero joango nauk hondartzara eta bustialdi eder bat hartuko diat. Koro Navarro

Arratsaldero elkarrekin merendatu eta solas egiten genuen. Agurtzane Juanena

Arratsaldero gizon bat zetorkion, lan berriaren sekretuak erakusteko. Gotzon Garate

Arratsaldero bezala, gizonezko bat eliz aurreko burdinazko atetzarra ixten ari zen, drogazaleek gaua eliz atarian pasa ez zezaten. Anjel Lertxundi

Arratsaldero, 18: 30etik aurrera, artista berriak eta gazteak ezagutzeko parada eskaintzen dute Principal antzokiko emanaldiek, jazz zale orok estimu handian duen atala. Berria - Kultura

Ni, **arratsaldero**, hutsik egin gabe, Sagarminaga Kulturunera joaten nintzen. Txillardegi

Ba al dakik Hamida **arratsaldero** joaten dela horra? Patxi Zubizarreta

Egiazki, divertimento bat besterik ez zen: gustatu egiten zitzaion tertulietan, berak eta bere lagunek hoteleko kafetegian **arratsaldero** egiten zuten solasaldiaren hasieran, "argaldu egin naiz" edo "gizendu egin naiz" esatea. Bernardo Atxaga

Nire neska-laguna oso kontserbadorea da, badakizu, astero elizara joan eta **arratsaldero** kafea Batzokian hartzen duten horietarikoa. Jon Arretxe

Nik ez nuen ia ikusi ere egiten, baina, ziotenez, **arratsaldero** edanda jaisten omen zen eskolara eta egunetako bizarrarekin ibiltzen omen zen. Juan Kruz Igerabide

Lau urtez, **arratsaldero** ikusten nuen neska, igandeetan izan ezik. Koldo Biguri

Whiskia eskatzen zion **arratsaldero**, bazkalostean kafea hartzera hurbiltzen zenean, edo koñaka. Alberto Barandiaren

Denverrek goizero praktikatzen zuen; **arratsaldero**, bera zen izarra. Anton Garikano

Sasoi elezaharrezko hartan, **arratsaldero**, bost eta erdietako sirena-tutuak jotzen zuenean, enplegatuetariko inor ez zen etxeratzen. Juan Garzia

Biharamunean, **arratsaldero** bezala, plaza aldetik agertu zen Yassin. Iban Zaldua

Hargatik jarraitu zuen Jean Pierrek dama haren etxera joaten **arratsaldero**, inoiz hutsik egin gabe, betiko orduan. Josetxo Azkona

Hasieran, koadernoak-eta uzten zizkidan Marisak, baina, gero, etxeko lanak nirekin batera egitera etortzen hasi zen **arratsaldero**. Juan Kruz Igerabide

Eskolatik bueltan, Sesame Street ikusten zuten **arratsaldero**. Astelehen **arratsaldero** pisukideok supermerkatura joan, gurditxoa hartu eta ohiko zirkuitua osatzen genuen bitartean, ohiko geldialdietan ohiko eztabaida errepikakorrak izaten genituen. Xabier Montoia

Zortzi-zortzietan iritsi nintzen elkartu behar genuen puntura, segurtasun-burua **arratsaldero** edatera joaten zen jatetxearen aurrera. Juan Kruz Igerabide

Harrezkero, Molly ia **arratsaldero** etortzen zen gurekin. Mirentxu Larrañaga

Garai batean ia **arratsaldero** joaten nintzen Margaren etxera: bere gurasoek, nireek ez bezala, hi-fi aparatua zuten, eta erabiltzen uzten ziguten. Iban Zaldua

Neurriz gain aritu zen negarrez, eta kasik **arratsaldero** egin zion bisita zorigaiztoko senarrari, haren samina arindu nahirik. Karlos Zabala

Haiek ere **arratsaldero** egiten baitzuten beren osteratxoa, galaz jantzirik egunero enperadorearen eguna ospatzen ari balira bezala. Xabier Olarra

Maite Artola Euskadi Irratiko Mezularia saioko aurkezleak jaso du irratiko Argia saria, **arratsaldero** aktualitatearekin lotutako saio "erakargarria" gidatzeagatik. Berria - Euskal Herria

Eguerdian Kugler jauna etorri da, eta Broks andreak, astelehenetik aurrera, **arratsaldero** bi orduz kafea hartzera etortzeko asmoa duela esan digu. Josu Zabaleta

Arratsaldero-arratsaldero, Kafka parkera joaten da paseatzera. Oskar Arana

Zein telebistak onartuko du, martxotik urrira, 160 egun, **arratsaldero-arratsaldero**, txirrindularitza eskaintzea telebistaz? Berria - Kirola

Antagonismo purua eta gordina dute gogoko goizero eta **arratsaldero**, gosariaren isilunean eta afariaren festan. Joseba Zulaika

Leone ikustera joaten zen **arratsaldero**. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arratsaldero bezala** (8); **arratsaldero egiten** (4); **arratsaldero joaten** (6); **da arratsaldero** (3); **goizero eta arratsaldero** (3); **ia arratsaldero** (5)

---

arratsalderoko *izlag* arratsalde guztietakoa.

Hugok beldurra erakusten du, hain leku zoragarria berehala modan jarriko dela eta dena andeatuko dela, Paris txiki baten antz faltsua hartuz: **arratsalderoko** kontzertua, hotelak, periodikoa irakurriz aspertzea, etabø, arestian modako udalekuetako biziera zozoaøø. Koldo Izagirre

Etxekoandre gazteak ere **arratsalderoko** bisitari bihurtu ziren, gero eta talde handiagoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Zuhaitz gandorretan **arratsalderoko** dantza hasi dute abarrek, elkar astintzen. Alberto Barandiaren

Aita txalupa lantzera etorri zen, **arratsalderoko** ohitura, atoiontziko guardia amaituta, arratsaldeko seietan. Koldo Izagirre

Goian-behean ari zuen euria, eta ohi baino lehenago bildu ziren besteak ere **arratsalderoko** buki-domino partidara. Anton Garikano

Udan, ordea, eguna luze izanik, eguzkiak majo berotzen duela kontuan hartuta, itsas-haize edo brisara **arratsalderokoa** gogoan izanik, ez da harritzekoa, mendi lepo altu samarren batetik laino lanbrotsu gorputz handirik gabeak, mendiari ondo itsatsita abiatzea. Pello Zabala

---

arratsapal ik **arrats 2**.

---

arratsaskari ik **arrats 3**.

---

arratserarte ik **arrats 3**.

---

arratsero *adlag* arrats guztietan, arratsaldero.

Atzo, bada, **arratsero** ohi dudan bezala atera nintzen, afal ondoren. Josu Zabaleta

Arratsean kontzertura joan beharko da, **arratsero** egonen baita kontzertua. Koldo Izagirre

Gure hondakin-artezalea goizero ekarri eta **arratsero** atzera bere kopia-paper mordoekin jasotzen zuen Land Roverraren zain geunden. Joxe Austin Arrieta

Bi neskato, korrikalarien txandal urdina jantzita, bularrean koloretan sagu baten burua margotuta, **arratsero** pasatzen ziren bertatik lasterketarako arratseko beren entrenamendua egitera. Fernando Rey

Terni Petroliniren lagun mina zen, eta Petrolini Turinera etorri zenean antzerki-emanaldi sail bat egitera, Ternik ia-ia **arratsero** butaka-txartelak izaten zituen debalde eta nire senideei eta amari oparitzen zizkien. Fernando Rey

Etorri **arratsero** bezala Efrainekin eta, telebista pizru ordez, portxera jotzen zuen Mary Anni kafe bat eskatu ondoren. Bernardo Atxaga

Gauero izaten ziren oinazturak, hori bai, eta haietxek gure **arratseroko** entretenimendu bakarra. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arratsero bezala** (5); **ia arratsero** (3)
> º

---

arratseroko *izlag* arrats guztietakoa, arratsalderoko.

Gauero izaten ziren oinazturak, hori bai, eta haietxek gure **arratseroko** entretenimendu bakarra. Joxe Austin Arrieta

---

arratto *iz adkor* arra txikia.

Atzamar luze batek arra luzexka izan dezake, baina oiloak? Ba, horixe da luzatzen den **arrattoa**. Pello Zabala

Beste atsotitz bat, antzerakoa, baina **arratto** hori laburtu nahi duena, oiloaren ordez, gazteagoa jarrita: Santa Luzia, oillaxkun arra luzia. Pello Zabala

---

arratxa ik **bolada**; **aldi**.

---

arratz *(corpusean ez dago; ETCn 8 agerraldi)* **1** *iz* danborra, danbolina.

Ezpata dantzariak Herriko etxetik irtetean jotzen da, beraren zortziko txit ezagun bat, gizon dantzaren hasierako soinuan bezala **arratza** jotzen duela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aretoko besaulkietan 2 urte ere ez dituen haur batekin jolasean ari da Monica de Nut, kantari eta **arratz**-txiki jotzaile galiziarra: agertokiaren ertz batean, txalapartaren soinua fintzen ari dira Mikel Ugarte eta Harkaitz Martinez De San Vicente, Oreka Tx-ko kideak: haien atzean da Mixel Ducau, alboka eta gitarra afinatzen (klarinetea eta saxoa ere ez ditu urrun): haren aldamenean, Rona Wilkie biolin jotzaile eskoziarra: oholtzaren beste aldean batu dira, berriz, Gwlym Bowen Rhys gitarra eta mandolina jotzaile galestarra, Bec Applebee perkusio jotzaile eta kantari kornuallestarra, Marit Talens kantari eta perkusio jotzaile frisiarra eta Iñigo Egia perkusio jotzailea. ETC-prentsa

2 *iz* lixiba egiteko ontzi handia.

Arropa garbitzen ari ziren, eta **arratza** irauli egin da, eta ura borborrean eta lixiba isuri dizkio amonari eskuetara. ETC-literatura, saiakera

Miquela eta biak garbitegiko etxolara joan ziren lixiba-**arratz** baten eta ureztatzeko mahukaren bila. ETC-literatura, saiakera

Upategian, sukaldean, edonon: pipak, dupak, tinak, tinakoak, turrilak, upelak, barrikak, barrikotak, bordelesak, hetoak, baldeak, kubak, kubetak, kubeletak, sardinzar-barrilak, lixibarako **arratzak**, neurriak hartzeko hordiak, erradak, suilak, ferretak, gailetak. ETC-literatura, saiakera

---

arratzuar *izond/iz* Arratzukoa, Arratzuri dagokiona; Arratzuko biztanlea.

Arratzuarra da, eta oso da maitatua eta errespetatua Bizkaian. Txillardegi

1952ko abuztuan, Pedro Mari Uriona **arratzuarrari** pasa dio txanda. Pello Zabala

---

arrau ik **arau**.

---

arrauka *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)* **1** *iz* lastodunen familiako landarea, larre, belardi, ubide-ertz eta basoen inguruetan hazten dena *(Festuca pratensis)*.

Arrauka ("Festuca pratensis") Poaceae familiako landare belarkara da. ETC-entziklopedia

Larre garaietan (2.000-2.700 m) **arrauka** da ugariena. ETC-entziklopedia

2 landare enbor barne-hutsa. ik. **lastotxo**.

Malenkoniak eta apatiak hartuta sentitzen zen, sabelean aterpetzen zuenak energia zupatuko balio eta itotzeko moduan utziko balu bezala (burura zetorkion irudia begi biribilak eta batrazioen esku txikiak zituen zizare batena zen, zizare bat bere erraietan ezkutatuta, kolore gorriko **arrauka** batez muina zupatzen tematuta). ETC-literatura, saiakera

Artzateko haitzaren gainetik Tortok mailotzar bat jaurtiz, Praixko gizagaixoari txiki-txiki eginda utzi dio karea egiteko egin berri zuen **arrauka**. ETC-prentsa

3 ***dunetako arrauka*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Dunetako arrauka ("Festuca vasconcensis") Poaceae familiako landare belarkara da. Izen zientifikoak euskal landarea dela dioen arren, hego-mendebaldeko Europako landarea da. ETC-entziklopedia

4 ***itsas arrauka*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Itsas arrauka ("Festuca juncifolia") Poaceae familiako landare belarkara da. ETC-entziklopedia

---

arraulari ik **arraunlari**.

---

arraultza ik **arrautza**.

---

arraultze ik **arroltze**.

---

arraun *(ETCn **12.602** agerraldi)* **1** *iz* zurezko haga, luzea eta buru-zapala, eskuz eraginda ur gainean barku bat mugitzeko erabiltzen dena.

Brankaria brankan bikoterik gabe aritzen den arraunlaria da, eta **arraun** motzarekin laguntzen du maniobra egiten. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan)

Arraun giro aparta igande goiz baterako! Berria - Kirola

Bi urte oso egin dituzu **arraun** girotik kanpo. Berria - Kirola

Hondarribiarrek ez zuten **arraun** erritmo egokia hartzerik lortu. Berria - Kirola

Hau da arraunean aritzeko lekurik onena", adierazi du **arraun** teknikariak. Berria - Kirola

Antolaketa beharretan Traineru Kluben Elkarteko kideek jardungo badute ere, laguntza jasoko dute Getxoko Udalaren aldetik eta, batez ere, Algortako **Arraun** Elkarteko kideen aldetik. Berria - Kirola

Ikasleak **arraun** taldeetara eraman eta era praktikoan hiruzpalau orduko ikastaroa jasotzen dute. Berria - Kirola

Getxon Kantauri aldeko hamabi **arraun** talderik onenak batuko dira igandean, Telefonicako Bandera nork eramango duen erabakitzeko. Berria - Kirola

Euskadiko **Arraun** Federakuntzak prentsaurreko batean azaldu zuen atzo Kontxan gertatua. Berria - Kirola

Gipuzkoako **Arraun** Federazioko teknikari Unai Elizasu arduratzen da eskola horietan klaseak emateaz. Berria - Kirola

Elkarlan horrek **arraun** eskola eman zuen, eta ordutik hona, gazteen kategoriatik hasita, maila guztietan dituzte ontziak. Berria - Kirola

Arraun munduan denok dugu elkarren berri eta betikoak gabiltza ia-ia. Berria - Kirola

Arraun mundua profesionalizatzeko geratzen den kirol bakarretakoa izango da, eta hainbeste jende eta komunikabide mugitzen dituen bakarra. Berria - Kirola

Lehen aldiz Boiron egin zuten **arraun** txanda berean, eta bermeotarrek 20 segundoko aldea atera zieten astillerotarrei. Berria - Kirola

Bost hilabete pasatu diren arren, **arraun** espedienteak irekita jarraitzen du, azken ebazpenaren zain. Berria - Kirola

3 ***arraun egin*** arraunak uretan mugitu ontzia bultzatzeko.

Noroeste jotzen dik, ezin diagu **arraun egin** haize kontra, ez diagu deus aurreratuko, alferrik nekatuko gaituk. Koldo Izagirre

Busturiako hondartzaren aurre-aurrean Kanalako ikurrin handia begiztatu nuenean, **arraun egiteari** utzi nion, baina posizioa mantenduz korrontearen aurka ziatzen nuela. Ramon Saizarbitoria

Utzi egin dio **arraun egiteari**, eta txalupak, ibaiaren korronteak eramana bezala, portuaren erdirantz jarraitu du geldiro. Koldo Izagirre

Bizkaiko eta Gipuzkoako txapelketak jokatzen dira gaur, eta bi txapelketetako lehen bi sailkatuek larunbatean Lekeition **egingo** dute **arraun**, Euskadiko Txapelketan. Berria - Kirola

Lehen eta hirugarren kaleetako traineruek kaiaren barnealdera **egiten** dute **arraun**, eta bigarrenekoek eta laugarrenekoek itsaso aldera. Berria - Kirola

Lagunei gogor **arraun egiteko** agindu nien, heriotzetik ihes egin ahal izateko. Juan Kruz Igerabide

Behin **arraun egiteko** kulote horietako bat oparitu zidan; hartu, erabiliko duzu, esan zidan. Lander Garro

Aurreko bi traineruak lehen txandan ariko dira, ordea, eta Zabaleta, Aizperro eta Orbañanostarrek ez dute herriko traineruaren parean **arraun egiterik** izango. Berria - Kirola

· *irud/hed* Maria San Gilek **arraun egiten** duen norabide berean **egitea** guztiok **arraun**, eta gure hautagaia sostengatzen aritzea guztiok. Berria - Euskal Herria

4 ***arraun eta arraun ari izan*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Taldearen zati handiena banderaren bila **arraun eta arraun ari den** bitartean, gutxiengoa, beste zatia, lehorrean egoten da. ETC-prentsa

5 ***arraun-luma*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Gabiraiak ozta-ozta mugitzen ditu bere hegaletako **arraun-lumen** muturrak, buztana pixka bat zabaltzen du abaniko itxuran eta nekerik gabe planeatzen du, bere gurutze itxurako itzala dardarka irristaraziaz belar horien gainean. ETC-literatura, saiakera

Lema-lumak eta **arraun-lumek** xingola transbertsal ilunak izaten dituzte eta sabelaldean intentsitate aldakorreko xingolak izan ohi dituzte. ETC-entziklopedia

Arraun-lumetako eta buztan luzeko urdinak izena ematen dio. ETC-entziklopedia

Urrun egonda ere, buru eta buztan laburrak dituela igarri daiteke, eta gerturatzean **arraun-luma** beltzak eta estal luma arren arteko kontrastea nabaria da. ETC-entziklopedia

6 *arraun-ontzi*

Berak uste ez bezala ibaian gora joan ziren, Amyk aurkitutako **arraun-ontzitik** urrutiratuz. Anton Garikano

Zuhaitz-hondo batzuk han eta hemen; kai bat, banku bat, **arraun-ontzi** bat behin, belar-meta bat normalean, ohea ez beti, eta hemen, orain, aulki kulunkari bat, eta gauza bitxia zen, zeren esperientziaz baitzekien altzariak zirela lekurik txarrenak loaldi on baterako. Anton Garikano

Hortzik gabeko aguretxo bat hurbildu zitzaien astiro eta, irribarre maltzur samarrez, beheko ur arreetan zabuka zegoen **arraun-ontzi** zahar bat erakutsi zien. Iñaki Mendiguren

7 *arraun surf* *(corpusean ez dago; ETCn **89** agerraldi)*

Arraun surfa edo padelsurfa surf kirolaren aldaera bat da, Hawaiin sortua. Ohiko surfean, kirolaria eserita izaten da uhin bat etorri arte; **arraun surfean**, aldiz, surflaria taularen gainean zutik izaten da, eta arraun bat darabil ur gainean mugitzeko. Kirol hau 2013an dokumentatu zen. ETC-entziklopedia

Arraunarekin uxatu nuen, leunki, eta ibaian behera segitu nuen **arraun surfean**. ETC-literatura, saiakera

Parte hartzeko hiru modalitate daude: surfeko ohol motza, long board deritzona eta **arraun surfa**. ETC-prentsa

Arraun-surf oholera igo, motxila hartu eta hari tresneria erantsita ibiltzen naiz kaxea-n, lasai. ETC-prentsa

Denetarik egin daiteke hemen: bela, banakako eta binakako piraguismoa, windsurfa, **arraun surfa**... ETC-prentsa

Garbiketa lanekin batera, **arraun surfeko** lasterketa bat izango da hilaren 30ean. ETC-prentsa

Santurtziko bizilagun bat hil da Huescako ibai batean **arraun surfa** egiten ari zela. ETC-prentsa

17: 00etan, **arraun-surfeko** herri lehiaketa egingo dute, eta horren ostean izango da argazki lehiaketaren sari banaketa. ETC-prentsa

8 *arraunean aritu*

Ez gara orain artean batera **arraunean aritu**, baina daramaten denboraldia eramanda, agian, hortxe-hortxe egon gintezkeen. Berria - Kirola

Orain arte, azken lau estropadetan izan ezik, klubek 22 osatu arte nahi adina arraunlari sar zitzaketen euren taldean, betiere urte horretan bertan beste klub batean **arraunean aritu** ez badira. Berria - Kirola

Aita **arraunean aritzen** zen zarauztarren traineruan, "Golondrina" izeneko hartan. Xabier Etxabe

Nabigatzen doanean, jarri egiten da, baina zutik joaten da **arraunean ari** denean. Julen Gabiria

Volgako Batelzainen musika entzuten zelarik, arnasestuka zetozen aurrealderantz Jonathan-eta-Léa, "heliu han, heliu han", salmo bat bezala abestuz, ontzi-sotoan **arraunean ari** ziren galerianoen egoera zorigaiztokoa musikaren bidez (--!) adierazten ari zirelako uste osoan. Jon Muñoz

Zinez, galera zahar batean **arraunean ari** den galeriano baten bizipenak ez al dira kartzelako galerietan atzera-aurrera dabilen galeriano batenak bezain errukiberak? Anjel Lertxundi

Bost minutu geroago Helen eta biak **arraunean ari** ziren. Bernardo Atxaga

9 ***arraunean egin*** arraun egin.

Bospasei kilometro **arraunean egin** ondoren, Jesus ur gainean oinez eta txaluparantz hurbiltzen ikusi zuten, eta beldurrak hartu zituen. Elizen arteko biblia

-Hala eta guztiz be, penagarria da **arraunean egin** beharra -esan zion Hagridek, Harryri beste zehar-begiratu bat eginez-. Iñaki Mendiguren

Debekatua dute igerilekuetan, tenis, hockey edo bestelako kirol zelaietan sartzea; debekatua dute **arraunean egitea**. Josu Zabaleta

Horrekin **arraunean egitea** ez da erraza izango horratik. Berria - Kirola

Ibaian behera zihoazen ontzietan **arraunean egiteagatik**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bertan **arraunean egiten** zuten bi marinel indartsurekin batera, Agnès de Espinosa eta biolin bat zihoazen. Felipe Juaristi

Raimundo Silva erreferentziarik gabeko espazioan **arraunean egingo** balu bezala dago, naturaz gaindiko gauzei edo lurretik kanpoko izakien agerpenei buruzko filmeetan boladan dagoen giro horietakoa da. Jon Alonso

Militante abertzaleei norabide berean **"arraunean egiteko"** deia egin zien bozeramaileak. Berria - Mundua

10 *arraunean ibili*

"**Arraunean zebiltzanak** gizon askeak ziren ordurako, eta gizontasunez aritu ziren. Agustin Otsoa

Gizon batek, emaztea eta alaba ondoan zituela, ilunabar aldean, sei gizon gazteren zerbitzuak ordaindu zituen, Sena ibaiaren ertzetik gertu **arraunean baitzebiltzan**, ibaia txalupaz gurutzatzearren. Koro Navarro

11 *lema-arraun* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Balea-txalupak, abiadurari dagokionez miresgarriro eraikiak, belaz, arraunez, pagaiez, lema arrunt batez eta **lema-arraun** batez hornituta daude. ETC-literatura, saiakera

Haren oin eskuinak, beste aldetik, ahuspez emaniko beltza txaluparen zolan atxikitzen zuen bitartean; eta beso eskuinaz **lema-arrauna** zerabilen txalupa lasterrago ibil zedin, begiak aurrera hedatuak, bere gizonei ahal zuten indar guztiaz arraun egin zezaten bihotz ematen ziela. ETC-literatura, saiakera

---

arraunean *adlag* arraun egiten.

Arraunean zebiltzanak gizon askeak ziren ordurako, eta gizontasunez aritu ziren. Agustin Otsoa

-Arraunean hasi al haiz? Koldo Izagirre

Baina ekaitz zakarra sortu zen eta itsasgizonek egun luzeetan jardun behar izan zuten **arraunean** gogor. Askoren artean

Marinelak, hala ere, ekin eta ekin hasi ziren **arraunean**, lehorrera nahian; alferrik, ordea, itsasoa gero eta haserreago baitzegoen. Jose Antonio Mujika

Aita **arraunean** aritzen zen zarauztarren traineruan, "Golondrina" izeneko hartan. Xabier Etxabe

Ea **arraunean** ba al nekien galdetu zidan. Ramon Saizarbitoria

Nire batel ttikira iritsirik, **arraunean** hasi naiz, jo eta su, akitzeraino. Patxi Zubizarreta

Bost minutu geroago Helen eta biak **arraunean** ari ziren. Bernardo Atxaga

Andrea hain gaixorik zuen erbesteratu politiko dirugabe harengan, Cafiren lagun min harengan, ez zuen ikusten behiala hondartzara berari bisita egitera joaten zitzaion Chiaramonte hura, **arraunean** eta igerian aritzen zena, bere lagunak kortejatu eta denaren gaineko txantxak egiten zituena, gauean Capanninara dantzara joaten zena. Fernando Rey

Gizon ezezagunak batel batera jauzi egin, eta **arraunean** hasi zen. Aritz Gorrotxategi

Urtebete lehenago aitari zoro deitzearen jolasa egin izan balio, nekez ziratekeen orain legetxe **arraunean** suabe eta baketan. Josu Landa

Zinez, galera zahar batean **arraunean** ari den galeriano baten bizipenak ez al dira kartzelako galerietan atzera-aurrera dabilen galeriano batenak bezain errukiberak? Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ari da arraunean** (3); **arraunean ari** (8); **arraunean egin gabe** (6); **arraunean egitea** (5); **arraunean egiteko** (6); **arraunean egiten** (5); **arraunean ere** (3); **arraunean ez** (3); **arraunean hasi** (12); **baina arraunean** (5); **dira arraunean** (6); **egin zuten arraunean** (4); **egingo dute arraunean** (3); **ere arraunean** (3); **hasi ziren arraunean** (5); **nintzen arraunean** (3); **zuen arraunean** (4)

---

arraunka *nola adlag* arraun eginez.

Arraunka iraganen dituzte itsasoak, bruxularik ez mastarik gabe. Juan Garzia

Ez zegoen oso urruti, ordea, eta gizonak adierazten zion tokirantz **arraunka** abiatu zen. Gotzon Garate

Eos, goizean jaiotzen dena, agertu zenean, sokak askatu eta itsasoratzeko agindua eman nuen, eta **arraunka** urrundu ginen, heriotzetik ihesi, lagun galduengatik saminez. Juan Kruz Igerabide

"Alea jacta est", orain bai bete betean ari zaizkigula gure "Indianoak" **arraunka** Saint Laurent ibaian barna. Herria

Portu koxkor batean sartu gara **arraunka** : inguruan, bazen granitozko labarrik, eta esklaborik zutabe batzuk zizelatzen. Juan Garzia

Finkatuak zituzten hiru helburuak bete dituzte: "Lapurdi" traineruarekin 500 kilometro kurritu dituzte **arraunka** Saint-Laurent ibaian. Herria

Lagunei deitu, eta itsasoratu egin ginen bizkor, **arraunka** . Juan Kruz Igerabide

---

arraunkada *iz* arraun kolpea.

Pausoak eta **arraunkadak** etxerantz eraman ahala, oroimena gordetzeko moduak eraiki behar zituen. Anjel Lertxundi

Urdaibai ondo ari da, baina azken **arraunkada** , azken bultzada falta zaio Astillerori aurre egiteko. Berria - Kirola

Eta **arraunkaden** artean batela geldirik bezala geratzen zen, gabetua, baina arraunen bultzakadak ematen zion berehala aurreraldia. Joseba Sarrionandia

Ontzi horia lehen **arraunkadatik** jarri zen aurrean, eta hor mantendu zen, tinko, txanda amaiera arte. Berria - Kirola

---

arraunketa 1 *iz* arraunean egitea.

Arraunketan gorputzak egiten duen joan-etorrian, Rosamariren irriari behatzen dio, eta bere bota berriei. Koldo Izagirre

Ontziko marinelek ezin diote **arraunketari** ekin, goseak baitaude, aspaldi ahitu zaizkie-eta zer jana, zer edana, ontziko horni guztiak. Anjel Lertxundi

2 ***arraunketa olinpiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **46** agerraldi)*

Hamahirugarren aldiz antolatu dituzte **Arraunketa Olinpikoko** Nazioarteko Estropadak Orion. ETC-prentsa

Hiru urte eskas ziren Orioko Arraun Olinpikoko Elkartea sortu zela, eta **arraunketa olinpikoari** behin betiko bultzada emateko asmoarekin antolatu zituzten estropadak elkarte sortu berriko kideek. ETC-prentsa

Modalitateak: tosta arraunketa eta **arraunketa olinpikoko** modalitate guztiak jorratu. ETC-prentsa

Aulki mugikorra edo, **arraunketa olinpikoan** , ontzi nagusia da hau. ETC-prentsa

Arraunketa olinpikoan , Munduko Txapelduna izan zen 1983an 8 arinean, beste lau euskaldunekin batera, eta brontzea lortu zuen 1984 eta 1985ean kategoria berean. ETC-entziklopedia

Donostiako arraunketan, Ur-Kirolak eta Donostia Arraun Lagunak taldeek txapelketa ugari irabazi dituzte **arraunketa olinpikoan** ; tostako arraunketan, 2007tik aurrera Donostiarra traineru bateratuaren proiektuan batu dira. ETC-entziklopedia

Eva Mirones Sola euskal arraunlaria da, **arraunketa olinpikoan** aditua. ETC-entziklopedia

Arraunketa olinpikoa gure herrian sartzen eta sendotzen lan gehien egin zuen pertsona izan zela esan liteke. ETC-entziklopedia

3 ***arraunketan egin*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Altxerrik ordea, oso zaila ikusten du neurriz aldatzea: "Azkarrago joatekotan bai, baina 15 metroko lau traineru lau balizetan **arraunketan egiteko** eremu zabalagoa behar duzu. ETC-prentsa

Gogor eta luzaroan **arraunketan egin** ondoren, txalupak ontziaren popa aldera iritsi ziren eta, distantzia egokian, arraunak utzirik, desarratu zituzten beren mosketeak. ETC-literatura, saiakera

4 ***tostako arraunketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

2003an ligek ibilbideari ekin eta **tostako arraunketa** irauli zenetik, sasoiz sasoi gora egin du traineruen eta arraunlarien mailak, eta behera traineru horiek hiru itsas milia osatzeko behar duten denborak. ETC-prentsa

UZEIk Kutxaren laguntzarekin **Tostako Arraunketaren** Oinarrizko Lexikoa liburuxka argitaratu du. ETC-prentsa

Tostako arraunketaren historiaren lau kolore nagusiak. ETC-prentsa

Tostako arraunketa eta aulki mugikorra desberdindu behar dira. ETC-prentsa

Batela **tostako arraunketan** erabiltzen den ontzia da, 4 arraunlari eta patroia izan ohi dituena. ETC-entziklopedia

Arraunketa mugikorrean aritzea izan zen, klub berri honen kasuan ere, lehen bokazioa, nahiz eta gerora **tostako arraunketari** ere heldu zioten. ETC-entziklopedia

Tostako arraunketari bagagozkio, kontaezinak dira lortutako lehenengo postuak, 437 garaipen metatuz historian zehar. ETC-entziklopedia

Trainerilla **tostako arraunketan** erabiltzen den ontzia da, 6 arraunlari eta patroia izan ohi dituena. ETC-entziklopedia

---

arraunketan *adlag* arraunean.

Makina bat aldiz ibili izan naiz berarekin **arraunketan** uda honetan, hain zuzen. Txillardegi

Arraunketan gorputzak egiten duen joan-etorrian, Rosamariren irriari behatzen dio, eta bere bota berriei. Koldo Izagirre

2004/2005 sasoinean, Frantziako xapelgoan, brontzezko medaila eskuratu dute Junior neskek, gidaririk gabeko laueko **arraunketan** , bai junior/senior neskek, zortziko arraunketa gidatuan. Herria

Arraunketan ezinean ari zirela ikusirik, haizea kontra baitzuten, goiz aldera ikasleengana joan zen Jesus, ur gainean oinez. Aurrera igarotzera zihoala. Elizen arteko biblia

---

arraunlari *(orobat **arraulari** g.er.)* 1 *iz* arraunean egiten duen pertsona.

Gainera, esan zidaan prest zeuzkala ontzi eta **arraunlariak** , hari etxeraino laguntzeko. Juan Kruz Igerabide

Arraunlari guztiek bertan behera utziko dute ontzia, marinel eta itsasgizonak lehorrean geldituko dira. Elizen arteko biblia

Lokarriak askatu eta **arraunlariek** ontzia itsasoratu zutenean, Ulisesek lo sakona hartu zuen, hilik balego bezala. Juan Kruz Igerabide

Altzinoo denen aurretik abiatu zen itsasontzira, hornidurak aulkien azpian ipintzera, **arraunlariek** minik ez hartzeko moduan. Juan Kruz Igerabide

Telemakok, orduan, ontzi bat eta hogei **arraunlari** eskatu zituen, aita hilik edo bizirik zegoen argi eta garbi jakitera joateko. Juan Kruz Igerabide

Arraunlaria bizkarrez baitoa helburura. Koldo Izagirre

Orotarat, 18 untzi eta beraz berrogeita-hamar bat **arraulari** . Herria

Aurtengoak beraz helduden igandean, hiru txandetan eta **arraulari** hoberenekin, goizeko 11-ak eta erdietan hasiz. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Itsasora dezagun ontzi berri bat, eta aukera ditzagun berrogeita hamabi **arraunlari** gazte, onenak. Horixe da orain **arraunlari** ona izateko ukan behar dena, hiru milia jo batean eginda barrena kiskaltzen dizun urradura ez dela oinaze sinetsi ahal izateraino amorratzeko ahalmena. Juan Kruz Igerabide

Hala, bada, feaziar **arraunlariak** uhartera iristear zeudela, Poseidonek ontzia harri bihurtu zien, eta ontzi itxurako haitz bat geratu zen uhartearen aurrean. Juan Kruz Igerabide

Ateneak, begiak dir-dir, erantzun zion esanez Mentes zuela izena, tafiar **arraunlarien** erregea zela. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arraunlari baino (3); **arraunlari bat** (10); **arraunlari batek** (5); **arraunlari batzuk** (7); **arraunlari eta patroia** (7); **arraunlari gisa** (4); **arraunlari guztiei** (4); **arraunlari guztiek** (3);

arraunlari horiei (3); **arraunlari horiek** (5); **arraunlari inguru** (3); **beste arraunlari** (3); **bi arraunlari** (5); **bost arraunlari** (4); **hiru arraunlari** (3); **lau arraunlari** (5); **orain arraunlari** (3)

arraunlarien artean (5)

---

arraunlaritza *iz* arraunlariaren jarduna.

Gainera diruzaina kontent, elkarteko hiru sailak azkarki ari, dela **arraunlaritza**, pilota edo gimastika. Duela zenbait egun hegazkinez joan dira ere hemendik beste hiru kide, beren mintza molde umoretsuan diotenaz: **arraunlaritzan** aldizkatzeko ipurdi berriak. Herria

---

arraunontzi *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* arraunek higiarazten duten ontzia.

Jord? eta biok **arraunontzi** zaharrak ginen kargaontzi erraldoi eta ikaragarri horien ondoan, beren fulard gorriekin eta beren giltzatakoak eskuan. ETC-literatura, saiakera

Hamaika edo hamabi urterekin, **arraunontzi** bat egin zuten, eta Dundarave Pier-en uretaratu. ETC-literatura, saiakera

Langileek eskulana ematen diete enpresei, baina ez dira **arraunontzi** bati kateatutako galerianoak. ETC-prentsa

Ez da harritzekoa **arraunontzi** enpresa egile esanguratsuena oriotarra izatea. ETC-prentsa

Maiz **arraunontziak** erabiltzen zituzten, hondartzetan lehorreratzeko eta ibaietan gora joateko aukera ematen zielako. ETC-prentsa

Maiz **arraunontziak** erabiltzen zituzten, hondartzetan lehorreratzeko eta ibaietan gora joateko aukera ematen zielako. ETC-entziklopedia

Jatorrian, inguraketa-arrantzarako erabiltzen ziren **arraunontziak** ziren, batez ere antxoa harrapatzeko. ETC-entziklopedia

Ziaboga **arraunontzi** bat baliza baten inguruan biratzean datzan maniobra bat da. ETC-entziklopedia

---

arraunzale *iz* arraunketaren zalea den pertsona.

Jendea, arraunlariak, **arraunzaleak**, galduta gaude une honetan. Berria - Kirola

---

arrausi ik **ah**arrausi.

---

arrautza *(orobat **arrautze** g.er.)* **1** *iz* hegazti emeek, besterik adierazten ez bada oiloek, eta orobat gainerako animalia emeek, eratzen duten gorputz biribil antzekoa, umekia eta berau elikatzeko gaiak dauzkana.

Ez da erraza ni hiltzea, nik anaia bat baitut lehoia dena eta mendian bizi dena, eta lehoi horren barruan erbi bat dago, eta erbiaren barruan uso bat; uso bat **arrautza** batekin. Bernardo Atxaga

Arrautza horretan daude eraikuntza-materialak: proteinak, koipeak, azukreak, mitokondrioak, eta gunea, hantxe baitaude irarrita eulia sorrarazteko behar diren aginduak. Juan Garzia

-Zin egiten dut **arrautza** hau duela ordubete hartu dudala nire oilo beltzaren habiatik, eta inork ezin izan duela bertan jarri, errun berria zegoelako. Koldo Biguri

Eta ukabila estutu zuen, bai eta **arrautza** lehertu ere. Koldo Biguri

Euli arrunt edo etxekoaren emeak 500 bat **arrautza** jartzen ditu hondakin horietan eta 24 ordu barru **arrautza** horietatik euli-larbak jaiotzen dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ugaztun emeek duela milioika urte ugaltzeko estrategia berri bat garatu zuten, **arrautza** enbroia-fetua uteroaren barruan gara zedin, eta ez **arrautza** baten barruan, espezie obiparoekin gertatzen den bezala. Luis Elberdin

ICSI -*Intracytoplasmic sperm injection:* espermatozoide bat **arrautza** baten zitoplasman injektatzea-. Ramon Saizarbitoria

Arrautza kraskatu zuen. Josu Zabaleta

Mutikoa ez baitzen gauza **arrautza** bat frijitzeko ere. Jon Arretxe

Berak **arrautza** banatara gonbidatu gintuen. Josu Zabaleta

Halabeharrezko prozesu bat da sorkuntza: emeak milaka **arrautza** erruten ditu eta arrak ere emankortasun beraz jartzen du hazia, baina **arrautza** batzuk baino ez dira ernaltzen. Irene Aldasoro

Nola oiloak, **arrautza** errunez gero, kakaraka eta zalapartaka aldarrikatu behar izaiten duen bere balentria lau haizeetarat, hala sentitu nintzela ni ere. Joan Mari Irigoien

Zer izan zen lehenago, oiloa ala **arrautza**? Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Goizean, meza eman eta gero, oilategira sartu zen **arrautza** freskoa jateko gogoa sartu zitzaiolako, eta oilo beltzak bat errun berria zuen. Koldo Biguri

Anniek bi **arrautza** egosi eman zizkion Jacki, eta bat niri. Koro Navarro

Arrautza egosia eta letxuga zeukan, eta maionesa. Iban Zaldua

Motxilak zabaldu genituen, otartekoak, **arrautza** gogorrak eta haragi orea elkarren artean banatu, eta txandaka edan genuen termoetatik. Koro Navarro

Nik behintzat nahiago **arrautza** frijituak txistorrarekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero goiz hartan bertan badiako harkaitzetan harrapatutako ostrak ekartzen dizkit, arkume saihets bi, lupia frijitua, arrain gozoa zinez, **arrautza** azukreztatuak platerean, txokolate krema bat. Koldo Izagirre

Txalupatiko arrantza amukoa, baserriko **arrautza** benetakoak, zortzi urtez larrean hazitako idia. Edorta Agirre

Arrautza luzangak oilaskoa dakar; **arrautza** potoloagoak, oilanda. Pello Zabala

Emaitza hori lortzeko, beharrezkoa litzateke **arrautza** ernalduetan injektatzea ADNa, erdibitze ororen aurretik. Juan Garzia

Arrautza ernaldua bi aldiz erdibitzen denetik, enbrioiak lau zelula dauzkanetik, zelula horien gunea ez da jada gauza enbrioi baten garapena bermatzeko. Juan Garzia

Txitatxoa jaiotzear denean, hildako **arrautza** zapuztuak maiz ikusi ditugu txorien habietan. Pello Zabala

Antza denez, Anconan, apaizak bedeinkatutako oilo batek oso **arrautza** arraroa errun omen zuen: ikur sakratua zeukan erliebean marraztua. Koldo Biguri

Aran ustelen, kontserbagai garratzaren eta **arrautza** ustelen nahaste baten usaina du gelak. Josu Zabaleta

Abdulek ez zuen sekula ulertu **arrautza** koloretsu haiek ze hegaztik erruten zituen. Harkaitz Cano

Habiako benetako jabeak, gainerako arrautzen erruleak, amarruaz ohartu ez eta kukuak errundako **arrautza** huraxe maitatzen du besteak baino gehiago, besteak baino indartsuagoa izango delakoan edo. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egundoko **arrautza** bat, txokolatezko **arrautza** baten erabateko itxura zuena. Koldo Biguri

Pazkoa egunean, etxetik goiz irtenda, On Camillok egundoko txokolatezko **arrautza** aurkitu zuen apaizetxeko ate aurrean, zeta gorrizko lazo eder batez apainduta. Koldo Biguri

Berak esan zuen nire begiak uretan irakindako **arrautza** ematen zuela, baina morea. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Elurra artean lokazten hasi gabea zegoen, eta Noraren oinetakoek **arrautza**-azalen kraskadura bezalako soinua ateratzen zuten elurra zapaltzerakoan. Anjel Lertxundi

Zartadatxo siku batez lehertzen zen burbuila, eta zatiak lurrean barrena barreiatzen ziren, **arrautza**-oskolen gisako zurrumurru motelez. Juan Garzia

Horra armada hori, halako jas eta muntakoa, printze delikatu eta xamur bat duela buruzagi, zeinaren izpirituak, handinahi jainkozko batek haizatua, destaina-imintzioak baitegizkio gertakizun igarrezinari, gogotsu utzirik hilkor eta ziurgabe dena halabehar, heriotza eta arrisku ororen esku, **arrautza**-oskol batengatik. Juan Garzia

Arrautza itxurako puxika gorriak, horiak, berdeak aireratzen ziren. Lopez de Arana

Aitona xaharrak izan zuen hortaz bere **arrautza** gorringoa? Xabier Mendiguren Elizegi

Arrautza gorringo bat hautsi zitzaion zartaginera botatzean, "hau ere orain gertatu behar", hondakinetara bota eta gosari gehiago prestatzen jarraitu zuen. Iñaki Zabaleta

Kafea hartu genuen eta erdi bana jan genuen **arrautza** pastela. Koro Navarro

Une hartantxe, aretoko atea zabaldu eta On Camillo sartu zen, eskuan isipua zuela, eta haren atzetik bi mezamutil, urbedeinkatu ontziarekin eta **arrautza**-otarrearekin. Koldo Biguri

Katilu batean **arrautza** pare bat irabiatu, eta hortik gehiena besamelari erantsiko diogu. Patxi Zubizarreta

Ezkontza ez da arrautzopila egitea bezala, aski dela **arrautza** parea apurtu, jo eta hamar minuturako dena eginik. Koldo Biguri

Artean, **arrautza** dozena batek hiru ogerleko balio zuen. Joseba Sarrionandia

Morrosko sendoek **arrautza** kaxak, gazta otarreak, gurin saskiak jaso eta enkantearen pabiloira zeramatzaten. Karlos Zabala

Martxoko oilandak ere hobeak, **arrautza**-erruleago. Pello Zabala

Karrikak sutan miretsi zituzten, zikin ontziak lurrean erretzen, koktel gisa hanpatu garagardo botilak eta etxetik ekarri **arrautza** tortak "indar errepresiboen" aurpegietan eta bereziki Kerguelen komisarioaren sudurrean zartatzen. Itxaro Borda

Hagridek gero eta ozenago hitz egiten zuen, **arrautza**-pontxetik kopakada bat bestearen ondoren hartu ahala. Iñaki Mendiguren

Arrain eta haragi piezak platerean gerora zerbitzatuko diren tamaina eta forman ebakita, **arrautza**-irinetan bilduta. Edorta Agirre

-Quidditcherako giro aparta! -esan zuen Woodek gogo beroz Gryffindorreko mahaian, taldekoen platerak **arrautza**-nahaskiz betetzen zituen bitartean-. Iñaki Mendiguren

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Osaba Joanikotek jaso zuen dukearen mirespena, osabak bere esperimentuen berri eman zionean, jakinarazten ziola nola oilaloka bat zuen, lau ahate-**arrautza** txitatu zizkiona, bertze nonbait erran dizudan bezala, eta nola oiloak eta ahattoek elkar ongi hartzen zuten, oiloak ahattoak bere kumetzat balitu bezala, eta ahattoek oiloa amatzat. Joan Mari Irigoien

Likidoz betetako kristalezko flasko txiki bat aurkitu zuen, eta beira horixkaz eginiko arrautza bat, oilo-**arrautza** baino handixeagoa. Xabier Aranburu

Ondoretasunean bilatu behar zen zer mekanikaren bitartez eratzen den oilo-**arrautza** batetik oilasko bat, eta giza **arrautza** batetik, berriz, gizaki bat. Juan Garzia

Hagridek munduan gogokoen duen gauza herensuge bat izatea eta sakelan herensuge-**arrautza** bat daukan ezezagun batekin topo egitea. Iñaki Mendiguren

Dena dragoi-**arrautza** batengaitik. Iñaki Mendiguren

Ardi-**arrautza** gunegabetu batean ardi-errapeko zelula baten gunea txertatu, eta bildotsak sortu dira. Juan Garzia

Bagina ez zen plazer sexualerako garatu, baizik eta umeek kanpora irteteko bide bat izan zezaten; izan ere, aurrerantzean umeak ez ziren emearengandik kanpo **arrautza** oskoldun batean garatuko (narrastiak), baizik eta sabel barruan. Luis Elberdin

Amonak esna igaro zuen gaua: alemanek sotoan otarre bat bete **arrautza** eta poto bat ezti aurkitu zituzten. Felipe Juaristi

5 irud/hed

Heinkelaren arranoek mokoa erantsi digute begietan, **arrautza** zilindriko hura jostailu hauskorra zen, akastu egin da Txatok ukitu duenean, eta gorringo pozoituan bildu gaitu. Koldo Izagirre

Hura esan eta esku batez goxo-goxo estutu zidan zakila, besteaz ene **arrautza** uzkurtuak ferekatzen zizkidala. Aitor Arana

6 ***arrautza ala oiloa***

Aristoteles handiaren obra arretaz irakurri ez duenak baino ez dezake galdetu **arrautza ala oiloa**, biotan zein izan ote zen aurrena. Joxerra Garzia

7 ***arrautza-azal***

Elurra artean lokazten hasi gabea zegoen, eta Noraren oinetakoek **arrautza-azalen** kraskadura bezalako soinua ateratzen zuten elurra zapaltzerakoan. Anjel Lertxundi

8 ***arrautza egin***

Oilo bat alderdian bazkidetu eta ondoko egunean mailuaren eta igitaiaren ikurra erliebean daukan **arrautza egin** du! Koldo Biguri

9 ***arrautza egosi***

Anniek bi **arrautza egosi** eman zizkion Jacki, eta bat niri. Koro Navarro

Horregatik ez zuten garai bateko erradiologoek **arrautza egosirik** jaten: oskola kentzeko heltzen ziotenean, ezin jasanezko mina sentitzen zuten. Irene Aldasoro

Emakumea erdi etzanda zegoen, gozo-gozo, **arrautza egosi** bat espinaka-platerkada batean bezala. Lopez de Arana

Arrautza egosia eta letxuga zeukan, eta maionesa. Iban Zaldua

Afaria ere gelara eramateko agindu nuen: **arrautza egosia** eta gari ogi txuria. Felipe Juaristi

Zilarrezko kopatxoan zutitutako **arrautza egosiari** zilarrezko zartadatxoak eman zizkion koilaratxo batez. Joxemari Urteaga

Bazkaria ere eramaten genuen zorrotxo batean, garbantzuak, arroza, **arrautza egosi** batzuekin, etxerainoko bidea luzeegia baitzen bazkaltzera joan eta eskolara itzultzeko. Jon Maia

Gaineko **arrautza-egosi** xerra eta maionesa paperezko zapi batekin nola kentzen nituen begiratu zenuen, eta nola bota nituen lurrera. Eider Rodriguez

Gero eta gose zakarragoa nuen eta, nire bazkariak aldatzeko, **arrautza egosiak** eta txokolatea eramaten nituen. Joxan Elosegi

10 ***arrautza errun***

Haren aurpegiaren obaloa polit-polita zen, eta biribila, **arrautza errun** berria bezala, eta halako zuritasun garden bat erakusten zuen, giltzain andrearen esku beltzaranean argi kontra ipinita **arrautza errun** berriak eguzki distiratsuaren izpiei igarotzen uztean agertzen duen gardentasun zurbilaren antzekoa. Jose Morales

Ikusgarri gertatzen da, izan ere, Sartrek kezkatzat izatea filosofi fenomenologia eta berberak pertsona moduan jasaten zituen depresio existentzialista eta neurosia, inguruan Espainiako Errepublikaren aurkako Jazarpena eta nazismoaren **arrautza erruten** hasita zeudela. Berria - Kultura

Esmeralda **arrautza erruten** ari da -esan zuen, Franklin andrea kulunkan baitzebilen bere aulkian. Koro Navarro

Halabeharrezko prozesu bat da sorkuntza: emeak milaka **arrautza erruten** ditu eta arrak ere emankortasun beraz jartzen du hazia, baina arrautza batzuk baino ez dira ernaltzen. Irene Aldasoro

Baina ia denon buzoiak daude, aspaldidanik herdoilduta eta txorien habia eginda, animaliek **arrautza erruteko** edo umea hazteko hartuta. Joseba Sarrionandia

Baina jakizu, halarik ere, ezen tipi geratuko nintzatekeela, baldin erranen banizu ezen, nola oiloak, **arrautza errunez** gero, kakaraka eta zalapartaka aldarrikatu behar izaiten duen bere balentria lau haizeetarat. Joan Mari Irigoien

Aurkitu ziren hidrokarburo kontzentrazioak nahikoa ziren arrautza barruko enbrioia eta **arrautza errun** duen emea akabatzeko. Berria - Euskal Herria

11 ***arrautza eskalfatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hemen ezohikoa bada ere, elikagai askorekin erabil daiteke; agian ezagunena **arrautza eskalfatua** da, batez ere Europako iparraldeko herrialdeetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arrautza eskalfatua edo arrautza poxatua ur irakinetan eginiko arrautza osoa da, nagusiki oiloarena, oskolik edo kuskurik gabe. ETC-entziklopedia

12 ***arrautza-esne*** *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi; orobat **arrautzesne** ETCn **21** agerraldi eta **natilla** ETCn **59** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **natilla** agertzen da)* ik **arrautzesne**; **natilla**.

Zunda lurreratu den tokia laua da eta, neurketen arabera, **arrautza esnearen** sendotasuna du: hau da, azal mehe gogorrago bat dago, gai likidoago baten gainean. ETC-prentsa

Baina ez zihoan Terenzitarrenera, Mossotarrenera zihoan, **arrautza-esnea** eramatera; hainbeste egin zuten, ze soberan baitzuten. ETC-literatura, saiakera

Jean-Mariek ez zuen jan bere bizian hainbeste gurin, hainbeste oilasko, hainbeste **arrautza-esne** eta hainbeste mertxika. ETC-literatura, saiakera

Kokozko pastel altu bat; **arrautza-esnezko** tartaletak, sasoiz kanpoko marrubiez estaliak; eta hostorezko tutuak, txokolatez estaliak eta esne-gain harrotuz beteak. ETC-literatura, saiakera

Hostorea zatitzen da kanutiloak egiteko, pastel-kremaz bete eta azukre-hautsez estaltzen dira. Bero ateratzen dituzte **arrautza-esne** edo txokolaterekin. ETC-

entziklopedia

Esne, intxaurrak, azukre eta kanela ditu osagaiak. Arrautzesne edo **arrautza-esnearen** itxura du. ETC-entziklopedia

13 *arrautza frijitu*

Arrautza frijitua jaten ari zen, eta ogi puska handiekin igurzten zuen platera. Bernardo Atxaga

Gosaltzeko, adibidez, ez dakit sinistuko duzuen baina, **arrautza frijituak** jaten ditut, txistorrarekin, eta ardoarekin noski. Xabier Mendiguren Elizegi

Seguru asko, biharamuneko gosaria: **arrautza frijituak** urdaiazpikoarekin. Berria - Kirola

Imanol ginebra edaten hasi da, bere arroza eta **arrautza frijitua** platerean kandelaren argitan dautzan artean. Joseba Sarrionandia

-Ergela ematen dut, ala? -bota zion zakar osaba Vernonek, **arrautza frijitu** pixka bat bibote handitik zintzilika zuela -. Iñaki Mendiguren

Arrautza frijitu gutxi eginak aurrean jartzen zizkion bakoitzean Eguberriak omen zitunan harentzat, hainbeste pozten zunan. Anton Garikano

-Ekarri **arrautza frijitu** pare bat mutilari, eta katilukada bat esne... -erran zion osabak. Joan Mari Irigoien

Gero, hiltegiko aparkaleku zabala oinez zeharkatuta, ondoko kafetegi batera joan da gosari-pasara egitera: **arrautza frijituak** txorizoarekin eta litro erdi ardo beltz. Patxi Iturritegi

Nik, ordea, hoteleko jantokian bazkaldu dut zeozer: **arrautza frijituak** , gazta eta opilak. Jon Arretxe

-Ekarri ume hori hona -aitak-, **arrautza frijitu** bat eta txorizoa egin dizkiot eta! Jon Maia

Zenbat denbora, esango dit, Non ibili zara? Eta **arrautza frijitu** parea egingo dit afaltzeko. Eider Rodriguez

14 *arrautza gogortu*

Goizean, aitak tren barruan esnea erosi zigun, eta **arrautza gogortuak** , eta babarrun-ogia. Juan Kruz Igerabide

15 *arrautza ipini* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Jim-ek esan zuen, beharbada, ilargiak ipini izanen zituela; eta bazuen bere arrazoi puxka, izanez ere, ikusia baitaukat nik, igel bat, kasik beste hainbeste **arrautza ipintzen** . ETC-literatura, saiakera

Dolly 1996ko uztailaren 5ean jaio zen, eta hiru ama izan zituen: batek **arrautza ipini** zuen, besteak DNA, eta hirugarrenak enbrio klonatuaren sabelaldia burutu zuen. ETC-entziklopedia

Batez beste laurogeita hamarna **arrautza ipintzen** dituzte guztira. ETC-prentsa

16 *arrautza-irin*

Tresnak tresna, elikagaiak erdi prestatuak erosiko ditu jatun ugariri eman behar dion enpresak (eskola, ostatu, fabrika, komentu, kartzela...): arrain eta haragi piezak platerean gerora zerbitzatuko diren tamaina eta forman ebakita, **arrautza-irinetan** bilduta. Edorta Agirre

17 *arrautza-irinetan pasatu* *(corpusean ez dago; ETCn **34** agerraldi)*

Amaiak beheko ezpainari hozka egin zion, bere gogoetetan murgildurik, zerbitzari batek **arrautza-irinetan pasatutako** txibia-eraztunak eta albondigak -saltsa irakiten zegoen oraindik buztinezko kazolatxoan- ateratzen zituen bitartean. ETC-literatura, saiakera

-Mutil bat zegoen ondoko ohean, eta arraina zeukan **arrautza-irinetan pasatuta** . ETC-literatura, saiakera

Bien bitartean, afaria prestatu nuen: orburuak eta legatz frijitua, **arrautza-irinetan pasatua** . ETC-literatura, saiakera

Eltzekariak dira plater oinarrizkoenak, batez ere Vega-Valdabiako babarrun zuriak eta Palentziako menestra, **arrautza-irinetan pasatutako** barazki eta haragiz osatutakoa. ETC-prentsa

Guraso askok lan azkarraren alde egiten dute, eta haurrei jango dutela ziur dakitena soilik prestatzen diete: pasta tomatearekin eta oilasko paparra **arrautza-irinetan pasatuta** , patata frijituekin. ETC-prentsa

Orain uretan erdi murgilduz eta flotatuz, **arrautza-irinetan pasatzen** ari den kroketa bailitzan. ETC-prentsa

Denetarik egiten dugu: patatak zuritu, saltsak egin, jatekoak **arrautza-irinetan pasatu** . ETC-prentsa

Zaharrak kroketak moduan dira, **arrautza-irinetan pasatzen** ditugu: ri-ra, ri-ra, hurrengoa! ETC-prentsa

18 *arrautza jarri*

Hala ere, habia horietako bakoitzean, dagokion kolore eta itxurako **arrautza jartzen** dute, beti ere bertako hegaztiaren arrautza baino zerbait handiagoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Oiloak urrezko **arrautza jarri** duela ematen du. Fernando Morillo

Euli arrunt edo etxekoaren emeak 500 bat **arrautza jartzen** ditu hondakin horietan eta 24 ordu barru arrautza horietatik euli-larbak jaiotzen dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta, batzuetan, txorien jaiotza jotzen zuen, eta orduan, amak, habiak inguratzen hasten ziren, **arrautza jarri** ote zuten ikusteko. Julen Gabiria

19 *arrautza nahasi*

Zazpiak puntuan, Lucy lotan zetzan gelara sartu eta harengana hurbildu nintzen edalontzi bat laranja-urekin, plater bat **arrautza nahasirekin** eta bi ogi-xerra txigorturekin gainean gurina zabalduta. Oskar Arana

Biek ederki zekiten hori horrela zela: Enperadorearen guardiaren semeak ezin ziola bere dirua Konradi eman, eta beharturik zegoela bere maila eta deiturei zegokien bizimodu hura egitera; eta Konradek, bitartean, etxean afaltzen zuen, hark ere lagunik gabe: **arrautza nahasiak** afaltzen zituen astean bost egunez, eta zuzenean zenbatzen zituen tindutegian garbitutako janzkiak. Xabier Olarra

20 *arrautza olioizartu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arrautza olioizartuak olio ugariz frijitutako arrautzak dira. Gaur egun plater zehatz bat izendatzeko erabiltzen den izendapena da. ETC-entziklopedia

Bereziki bertan zerbitzatzen diren **arrautza olioizartuengatik** ospea du. ETC-entziklopedia

21 *arrautza-ontzi*

Ezer gutxi ikasten da hamabi zulotako **arrautza-ontzi** batean hamabi arrautza daudela jakin nahi eta, behin eta berriro bat-bi-hiru hamabiraino kontatzen hasita. Anjel Lertxundi

22 *arrautza-opil* ik **arrautzopil**.

23 *arrautza-oskol*

Zartadatxo siku batez lehertzen zen burbuila, eta zatiak lurrean barrena barreiatzen ziren, **arrautza-oskolen** gisako zurrumurru motelez. Juan Garzia

Arrautza oskol gabetu berria zirudien andreak. Mirentxu Larrañaga

Bagina ez zen plazer sexualerako garatu, baizik eta umeek kanpora irteteko bide bat izan zezaten; izan ere, aurrerantzean umeak ez ziren emearengandik kanpo **arrautza oskoldun** batean garatuko (narrastiak), baizik eta sabel barruan. Luis Elberdin

Kristautasun ostekoak dira, historikotasun ostekoak, literatura ostekoak, litekeena da **arrautza oskoletik** ere atzo bertan atera izana. Oskar Arana

Haren buruak **arrautza-oskolaren** hotsa egiten zuen. Pablo Sastre

Jose Manuel Marin ikertzaile taldeko arduradunaren esanetan, **arrautza-oskolaren** 497 zatiak oso egoera onean daude. Berria - Gaiak

24 *arrautza-perretxiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Agian lehen gizonek errazkienik aurkitzen zuten janaria zen arrautza; guk arrautzopilak eta **arrautza perretxikoak** behar ditugu jateko. ETC-literatura, saiakera

Kuletoa, gorringoa edo **arrautza-perretxikoa** ("Amanita caesarea") perretxiko mota bat da. ETC-entziklopedia

25 *arrautza poxatu* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Uretan oskolik gabe egosten diren arrautzei **arrautza poxatuak** edo arrautza eskalfatuak deitzen zaie. ETC-entziklopedia

26 *arrautza tartaleta* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arrautza tartaleta (mandarineraz:??, txinera sinplifikatuz:??, Hanyu Pinyin Pinyineraz: "dàn tà") txinatar gozogintzako berezitasun bat da, tartaleta bat arrautza pudin budinez betea dena. ETC-entziklopedia

27 *arrautza uretan pasea* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Pentsamendu haiek segida izan zuten bere etxean afaria berotzen zuen bitartean, okindegitik ekarritako patatak ilarrekin eta legatza saltsan senarrarentzat eta bikientzat, zopa eta **arrautza uretan paseak** berarentzat, baina ez zituen agerian utzi harik eta bikiak plazara jostatzera joan eta senarra eta biak etxearen atzeko terrazan eseri ziren arte. ETC-literatura, saiakera

28 *arrautzak egin*

Badakizu nola irudikatzen dudan nik Jainkoa: inork ezagutzen ez duen organo sortzaile munstrozko bat, arrain besterik ez bezalako batek itsasoan **arrautzak egingo** lituzkeen bezala, espazioan zehar milioika mundu ereiten dituena. Josu Zabaleta

AXENARIO: Eta **arrautzak egiten** badizkit, aitatxo, habia bertan egiten badit? Itziar Otegi

29 *arrautzak errun*

Matxardearekin helduz eta bultzatuz, ernaldutako **arrautzak errutera** behartzen du emea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Etxeetako teilatuetatik txolarre mordoa ekarrarazi zuen, eta agindu zien birigarroen habia zaharretan **arrautzak erruteko**, eta gero dama gazteei bidali zizkien kumeak, zin eginez birigarro-kumeak zirela! Julen Gabiria

Antzinakoek basiliskoaren existentziari buruz eman dituzten adina lekukotasun ez dute beste ezeri buruz eman, baina oilarrek **arrautzak erruteari** utzi zioten. Xabier Olarra

Akaso hori zen gorringo koloretsuak zituzten **arrautzak erruten** zituen txoriaren izena. Harkaitz Cano

Charliek kontatu zienez, izokina **arrautzak errutera** etorri bide zen errekan gora; izan ere, halaxe egin ohi zuten. Mirentxu Larrañaga

Eta berdin mimetizatuko da zuhaitzaren adarrarekin, eta hosto berdeekin, eta ortziaren gardenarekin, eta **arrautzak errungo** dituen hareatzako isiltasunarekin. Joseba Sarrionandia

Gaur, tamalez, oilo gehienak granjatako kaiolatan daude, lumak botatzen eta **arrautzak errun** eta errun. Pello Zabala

30 *arrautzak ipini* *(corpusean ez dago; ETCn 19 agerraldi)*

5 hilabeterekin kaiolatan sartu eta urtebete **arrautzak ipintzen** jardun ondoren, hiltegira eramaten dituzte. ETC-prentsa

Aipatu txorien kasuan, hormonengatik emeak arrak baino indartsuagoak direnez, txoriak lehenengo emeei dagozkien **arrautzak ipintzen** ditu eta egun batzuk beranduago, arrarenak. ETC-prentsa

Tximeletak baditu oso kaltegarri egiten dituen ezaugarri batzuk: Norbera konturatu orduko, **arrautzak ipintzen** ditu geranioan. ETC-prentsa

Urtero bezala, askotariko hegaztiak egongo dira: arraza, forma, tamaina eta kolore askotariko oiloak, indioilarrak eta ahateak egongo dira, **arrautzak ipintzen** dituztenak asko. ETC-prentsa

Arrainak bizi zikloa egitera joaten dira Capbretongo itsas hobira, **arrautzak ipintzera**, eta, ia gehienetan, arrautzak bota baino lehenago arrantzatzen dituzte, desagertzeko arriskuan jarriz. ETC-prentsa

Arrain txiki batzuk, bjelica izenekoak, urtero uda hasieran Rzav ibaitik behera haren bokaleraino **arrautzak ipintzera** sardatan jaisten direnak, hainbeste etorri dira, ezen haurrek baldekadaz harrapatzen baititutzte sakonera gutxiko ibai zokoetan eta ibaiertzera botatzen. ETC-literatura, saiakera

Arrautzak ipintzen ditu, hau da, errule obiparoak dira. ETC-entziklopedia

Bizi den ibaietan landaredi asko dago eta horregatik, **arrautzak ipini** baino lehen garbituko dituzten leizeak, harri lauak eta hosto zabaletako landareak gustatzen zaizkie. ETC-entziklopedia

31 *arrautzak jarri*

Zaldi-gorotzak izaten dira eulientzat euren **arrautzak jartzeko** lekurik aproposenak, baina horien faltan edozein hondakin oso egokitzat hartzen dute, landare-hondakinak batik bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina ezin ziren uretatik urrundu; izan ere, ura behar zuten **arrautzak jarri** eta ugaltzeko. Luis Elberdin

Peter salbatzera joan zen, bere habia ematera, bertan **arrautzak jarrita** zituen arren. Julen Gabiria

Urtero dago Arcon deigarria den artelanen bat, eta aurtengoa Pilar Albarracinek aurkeztu duen urrezko **arrautzak jartzen** dituen oiloa izan da. Berria - Kultura

Eta haiek, habiak erabiliz, **arrautzak jarri** eta kumeak ateratzen hasi ziren anaien bistan. Askoren artean

Arrautzak jarritakoan, Aitaren egin eta Purgatorioko arimen alde errezatu behar da. Pello Zabala

Berak ordu arte uste zuenez, katemeak **arrautzak jartzen** zituen, oiloak bezala, eta gero txitatu egiten zituen, eta haurra izan behar duten amak ere. Josu Zabaleta

32 *oilanda-arrautza* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Oilanda-arrautzaren oskola da beira sotila, esku trebatuan baizik bizirauten eta atsegina ematen ez dakiena. ETC-prentsa

33 *Pazko arrautza* *(corpusean ez dago; ETCn 13 agerraldi)*

Pazko arrautza, Pazko Eguneko usadio gastronomiko bat da. Honetan, jendeak elkarren artean arrautzak trukatzen dituzte, gaur egun nagusiki txokolatezko arrautzak. ETC-entziklopedia

Orduan, errepaso bat eman diogu guztiari: Charliek lorategian sekula aurkitu ez zituen **pazko-arrautzak**; Adrienen estrabismoa, Charlieri izterrean odola atera arte hozka egin zion bizilagun txikiarena, alegia [...] ETC-literatura, saiakera

Nahastuta zegoen; berak **Pazko arrautzak** jaten eta Eguberrietan arbola apaintzen jarraitu zuen, eta Parminderrek umeei erakusten zizkien liburuak, aldiz, guruen bizitzei eta khalsen printzipioei buruzkoak, irakurtzeko oso zailak iruditzen zitzaizkion. ETC-literatura, saiakera

Pazko-arrautzen dozenaka poltsa daude likidazioan, merkealdietako saskietan botata. ETC-literatura, saiakera

Mutiko batek, azukrezko arrautza txikiz beteriko **pazko-arrautza** bat ireki, eta oihu egin zuen, liluraturik: "Hara! ETC-literatura, saiakera

AEBetan hauteskunde garaian murgilduta daude, eta Etxe Zuriko lorategian **pazko arrautzen** festa antolatu dute. ETC-prentsa

Pazko arrautzek gorringorik gabekoak izan beharko dute, kolesterolari aurre egiteko? ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrautza bat (37); **arrautza baten** (8); **arrautza batetik** (4); **arrautza batzuk** (6); **arrautza beroak** (3); **arrautza bi** (4); **arrautza egosi** (4); **arrautza egosiak** (3); **arrautza ernaldua** (3); **arrautza errun** (3); **arrautza erruten** (3); **arrautza ez** (3); **arrautza formako** (4); **arrautza freskoak** (5); **arrautza frijitu** (7); **arrautza frijituak** (19); **arrautza gehiago** (3); **arrautza guztiak** (4); **arrautza hori** (3); **arrautza horretan** (3); **arrautza itxurako** (3); **arrautza jan** (4); **arrautza jarri** (3); **arrautza oskol** (3); **arrautza pare bat** (4); **arrautza parea** (3); **baina arrautza** (5); **bere arrautza** (3); **beste arrautza** (3); **bete arrautza** (4); **bi arrautza** (13); **da arrautza** (3); **du arrautza** (4); **errun arrautza** (3); **hegaztiaren arrautza** (3); **hiru arrautza** (3); **zenbat arrautza** (3); **zuen arrautza** (5)

arrautzak edo (3); **arrautzak ere** (4); **arrautzak errun** (4); **arrautzak eta patata** (6); **arrautzak ez** (3); **arrautzak frijitzen** (3); **arrautzak jarri** (3); **arrautzak jartzen** (4); **arrautzak jaten** (4); **bere arrautzak** (4); **dituzte arrautzak** (5); **edo arrautzak** (4); **haragia eta arrautzak** (3)

arrautzaren eta oiloaren (3)

arrautzarik ez (3)

arrautzatik irten (3); **arrautzatik irteten** (3)

arrautzazko pastel (3)

arrautzen gainean (4)

---

arrautze ik **arrautza**.

---

arrautzesne *(ETCn 21 agerraldi; orobat **arrautza-esne** ETCn 17 agerraldi eta **natilla** ETCn 59 agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **natilla** agertzen da)* *iz* gorringo, azukre eta esnearekin, bestek beste, egiten den gozoki krematsua. ik**natilla**.

Baziren kolore guztietako katuak, kaiola bat bele zaratatsuekin, saski bat **arrautzesnearen** koloreko eta ozen burrunba egiten zuten ile-bola bitxiekin, eta salmahaian kaiola

handi bat arratoi beltz distiratsuekin, beren buztan soildu luzeak baliatuz, jauzika, jolasean zebiltzanak. Iñaki Mendiguren

---

arrautzeztatu, arrautzezta(tu), arrautzeztatzen du *ad* arrautza irabiatuekin estali.

Abuelo txabolatik atera zen umearekin, umeak mutur buelta osoa **arrautzeztatua** zeukan. Jon Maia

Arratsaldeko bostetan zer eta saiheski ogi-**arrautzeztatuak** eta askotariko hestebeteak erosi! Karlos Zabala

Gelditzen zaizu saiheski ogi-**arrautzeztaturik**, Quenu andrea? Karlos Zabala

---

arrautzontzi *iz* arrautzak gordetzeko edo garraiatzeko ontzi modukoa.

Ene planta beldurgarria areagotzen omen zuen eskuan armatako nekarren **arrautzontzi** hutsak. Aingeru Epaltza

---

arrautzopil *(ETCn **150** agerraldi; orobat **arrautza-opil** ETCn **9** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **arrautzopil** agertzen da)* **1** *iz* tortilla.

Omerice izenekoak ere egiten zizkigun, arroza, tipula eta azenario txikitua nahasi, eta **arrautzopil** batean bildurik, gainean ketchupezko lore bat marrazten ziola. Juan Kruz Igerabide

Ezkontza ez da **arrautzopila** egitea bezala, aski dela arrautza parea apurtu, jo eta hamar minuturako dena eginik. Koldo Biguri

Quenuk haren lepotik barre egiten zuen, oso traketsa baitzen **arrautzopilak** egiten eta serio-serio jartzen baitzen okela salda maneatzean. Karlos Zabala

Ortuzainak barre egiten zuen atseginez; bi gizonak maite zituen, urdai **arrautzopila** egingo ziela agintzen zien. Karlos Zabala

Amak orburuak prestatu zituen, ilarrekin, eta barazki-zopa bat, eta zainzuriekin egindako **arrautzopila**. Juan Kruz Igerabide

Zainzuri-pote bat askatu, entsalada bat prestatu, eta **arrautzopil** bat egin genuen txanpinoiekin. Juan Kruz Igerabide

Ogia erditik pikatu, **arrautzopilez** bete, ogitartekoa paperez inguratu eta eskuetara eman zion Jateko gauzekin ez dagoela jolasik esaten dute, baina badago; hartzen ditugu legatza erromatar erara, arroza Kubakora, espagetiak Boloniakora, ogi española, frantses **arrautzopila**, edo taloa (berez, euskaldun puru-purua), eta pixkatean pentsatu eta berehala ohartzen gara noizbait nonbait asmatu, bataiatu eta, denbora pixkatekin eta propaganda puskatekin, betiko eta betidaniko bihurtu direla edo dituztela. Eneko Bidegain

Nire amorrua azalean zegoen, eta, une batez, suz inguraturiko izotz puska bat, **arrautzopil** sorpresadun bat nintzelako irudipen tristea izan dut. Monika Etxebarria

2 *bakailao arrautzopil* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Bakailao arrautzopila (Hego Euskal Herrian "bakailao tortilla" eta Ipar Euskal Herrian "bakailao moleta" ere deitua), bakailaoa, arrautza irabiatuz eta gurin edo olioz zartagin batean prestatutako jaki bat da. ETC-entziklopedia

---

arrauzkara *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)* *izond* arrautza itxurakoa.

Jakina zen planetak makurtuak daudela, elipse deritzon formako ibilbide **arrauzkara** jakin batean orbitatzeko -Richard Feynman-en hitzetan, "oso kurba jakina eta zehatza"-, baina ez zekiten zergatik zen hori horrela. ETC-literatura, saiakera

Beltxarga-ikur **arrauzkara** zegoen eskegita burdinazko atetzarraren ondoan. ETC-literatura, saiakera

[...] garai hankadun bat, gorri ilunez lakatua, zirtzilkeriaz betetako hiru apalekin: agatak eta harrizko arrautzak, sudur-hautserako kutxatxoak, bonboi-kaxak, jadezko hautsontziak, nakarezko maskor bat, sakelako erloju bat zilarrezkoa, beira landuzko ontzi bat, kristalezko piramide bat, miniatura bat marko **arrauzkara** baten barruan. ETC-literatura, saiakera

Bukaeran, ilunpean ia, gela **arrauzkara** handia egon da urteetan. ETC-prentsa

Bulego **arrauzkarako** mahai gainean WSJren astelehenetako alea jarri ziotenean, zer pentsatuko ote zuen George W. ETC-prentsa

Intsektu zapalak dira, eta **arrauzkarak**: orokorrean, iletsuak eta gorriak izaten dira. ETC-prentsa

Helburu horretarako, lekua ezin hobea zen, eta, nahiko esfortzu txikiarekin, ur-mailaren gainetik lur-eremu **arrauzkara** bat sortzea lortu zuten. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kolore arre-gorrixkako **arrauzkara** du, 25cm zabal izatera irits daitekeena heldua denean. ETC-entziklopedia

---

arrauzki *iz* oinarritzat arrautza duen janaria.

Dagoeneko, adibidez, oilo-arrautzarekin eta behi-esnearekin hainbat saiakuntza egin dira, gantz azido aseen partez **arrauzkiek** eta esnekiek asegabeak (insaturatuak) eduki ditzaten. Edorta Agirre

---

arrauzño *iz adkor* arrautza xumea.

Gauzaki eta halakoak pileka; kimikoak, plastikozkoak, metalezkoak eta bestelakoak elemeniaka; orobat, lonbre ezinago handian, **arrauzño** eta espermatozoide lehortu, gorputz atal, odol, zelula hil eta suerte hortarik. Jose Angel Irigaray

---

arrauztatu, arrauzta(tu), arrauztatzen du *ad* arrautzeztatu.

Amabitxien emaiarekin asi dira goiz goizetik, opil adardun **arrauztatuaz** lerde daritela agotik. Patziku Perurena

---

arraxin *(corpusean **arraxina** soilik; Euskaltzaindiaren Hizegian **arraxin** agertzen da)* *iz* erretxina.

Prozesu horri esker, lehengaia pasta, **arraxina** edo errauts bilakaraztea lortu zuen. Berria - Kultura

Oroit-arazten dute aurten sekula baino arrapaketa handiagoak burutu dituztela, hala nola 15 tona kanabiz **arraxina**. Herria

---

arraxtada *iz adkor* urratu arina.

Ni jotzeko oldartu zitzaidan, baina bere ukabilak **arraxtada** bat besterik ez zidan egin, sorbaldan; orduan nire bi besoekin inguratu nuen geldiarazteko, ez nuelako berriz jo nahi. Fernando Rey

· *irud/hed* Hiztun komunaren neurriko izendatzetik autoritateak ezarritako izen edo rotuloetara darabilgun txango honetan, pentsamenduaren kartografia ofizialari **arraxtada** bat edo beste egitea dagokigu orain. Iñaki Segurola

---

arraxutitu, arraxuti(tu), arraxutizen du *ad ipar* berriro zutitu.

Baina Martin Larreko jaunak **arraxutitu** zituen eroriak eta berreraiki aterbeak. Herria

Mendisco batek konduetan **arraxutitu** zuenetik zorionez. Herria

---

arraza 1 *iz* izaki bizidun mota bat, eta bereziki giza mota banatzen den taldeetako bakoitza, ondoretasunezko bereizgarri berek dituzten banakoez osatua.

Sealyham terrier horietakoa iruditu zitzaien antza, bestelako **arrazen** aztarna mordoak nolabait lausoturiko irudipena. Mirentxu Larrañaga

Animaliak etxalde erraldoietan pilatzeak eta **arrazen** «homogeneizazioak» gaitz klase hauek errazago zabaltzea ekartzen dutela gaitzetsi zuten atzo nekazariek. Berria - Gaiak

Denbora batean horko diru sartzea artaldetarik zen eta bereziki iletik, hargatik zen hor inguruetan munduko ilerik finenetarik harrapatzen, ardi **arrazari** biziki kasu egiten baitzioten. Herria

Horrez gainera, Giza ondoretasuna eta **arrazen** higienea eskuliburuaren egileetarikoa zen: Hitlerrek, espetxean zegoela, liburu horretatik elikatua zuen bere arrazismoa. Juan Garzia

Gerra aurretik Nurembergeko badget **arrazakoak** hazten zituen, hegaletan gezi beltz eta zuri zorrotzak zituzten uso txiki haiek, eta berak garbitzen zien usategia bi egunetik behin eta ura aldatzen zien eta zahia jartzen. Fernando Rey

Sealyham terrier horietakoa iruditu zitzaien antza, bestelako **arrazen** aztarna mordoak nolabait lausoturiko irudipena. Mirentxu Larrañaga

Estazioetan gauza piloa erosten dut: abanikoak, labana txikiak, teniseko pilotak, tarot-kartak, baselizetako gidak, dalmata **arrazari** buruzko liburuak. Unai Elorriaga

Eskualdeko beste loro-**arraza** batzuekin parekatzeko ohitura hartu zuen ara urdinak. Jon Muñoz

Brigadistak zaharrak eta gazteak dira, **arraza**, erlijio, klase edo sexu joera desberdineko jendea. Berria - Mundua

2 *iz* batez ere azalaren kolorearen arabera bereizten diren gizataldeetako bakoitza.

Arrazen eta pertsonen koloreen artean dauden bezainbeste, adibidez: horiak, beltzak eta zuriak. Luis Elberdin

Neurekoikeriaz ari naiz: sudurluzeok susmagarriago izango gara beti ariar **arrazako** poxpolinak baino. Joxerra Garzia

Hala, **«arraza** zuria zain dezagun» eta **«arraza** zuriko neba-arrebak, lasaitasunean egon zaitezte, ez dugu barkatuko» antzeko esaldi dorpeak irakur zitezkeen. Berria - Mundua

3 *iz* herria, leinua.

Sendoa zen, baina mehea, oso antzinako **arrazetako** mutikoak bezala, zeinek haragi baino hezur gehiago izaten baitute. Xabier Olarra

Are gehiago, aurreko hiru **arrazen** hil ondorengo patuak lurrean izandako bizitzaren araberakoak dira. Iñaki Mendiguren

Hizkuntza giza bizitzaren adierazle da, haien ustez, eta herri zein **arraza** bakoitzaren espiritua -espiritu berezia, Volkgeist izendatzen dena- bere hizkuntzaren sintaxi eta fonetika halaber berezian islatzen da. Bernardo Atxaga

Euskaldunek, beren **arrazaren** joerari jarraituz, bazihoazen zaharra berriaren kontra defendatzera. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

New Orleans hiri kosmopolita da, eta alde zaharrean **arraza** nahasketa bero eta oparoa eratu da. Xabier Paya

-Alemanez **"arraza** eskandalua". Josu Zabaleta

Fantasia, abentura, erromantizismoa, **arraza**-aniztasuna... dena dauka! Jon Arretxe

Ildo horretatik, apartheid, **arraza**-bereizkeria, bazterketa, kolonia-zapalkuntza eta atzerritarrek zertutako beste zapalkuntza eta domeinu forma batzuk sustatzen edo iraunarazten dituzten politikak zeharo baztergarriak dira, eta desagerrarazi beharrekoak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Biltzarreko ordezkarien aitzinean. 1957an, Estatu Batuetako Little Rocken **arraza** istiluak gertatzen ari ziren bitartean, Sobiet Batasunak bidali zuen airera bere lehenbiziko satelitea. Pello Salaburu

Hilketa eta **arraza** gorrotoa eragiteaz eta «erabilera terroristarako» dokumentuak izateaz akusatutako Abu Hamza al Masriren kontrako epaiketa abiatu zuten atzo Londresen. Berria - Mundua

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Elkartearen buru den Donibane Lohizuneko notariak hala uste dauka, pottoka **arraza** salbatzekotz hortarik pasatu behar dela. Herria

Denbora batean horko diru sartzea artaldetarik zen eta bereziki iletik, hargatik zen hor inguruetan munduko ilerik finenetarik harrapatzen, ardi **arrazari** biziki kasu egiten baitzioten. Herria

Orain arte, Erronkariko Gazta rasa eta latxa ardien esnearekin egiten zuten, baina ardi **arraza** horiek ez omen dute nahiko esne ekoizten, eta gaztagileek lacaune edo asaf **arrazak** Erronkari Gaztaren jatorri izenaren barnean sartzeko eskatu diote Nafarroako Gobernuari. Berria - Ekonomia

Andaluza nekazari **arraza** da, aurpegiko hazpegietan beretan ezagun du; euskalduna, "xxxx" - "historia gabeko" jendea (beste herrien zerbitzura egotekoak Izpiritu unibertsalaren historian). Joxe Azurmendi

Ongizatearen aurkako eta, egia esanda, giza **arrazaren** iraupenerako mehatxurik handiena ez zen arma atomikoak asmatzea, baizik eta bizidunen giza arimetan Goiz Aro Modernoan Mendebalde-ko munduan ehun bat urtez, circa K.o. 1560an Mendebaldeko erlijio-gerrak piztu zirenean hasita, nagusitu zen bezalako jarrera bat sortzea. Iñaki Mendiguren

6 irud/hed

Baina egun batean bakarrik topatu behar zuen bere burua, Achille jaunak bezala, neuk bezala: nire **arrazakoa** da, borondate ona du. Monika Etxebarria

Txerrenen **arrazakoak** zarete zuek guztiok! Patxi Zubizarreta

Popatik hartzera zu, zeure laguna eta zeure **arraza** puto guztia! Sonia Gonzalez

7 ***ariar arraza***

1934an alde egin zuen Alemaniatik, baina amak, erakutsia baitzuen jada bere ernetasuna Hirugarren Reich hartan **ariar arrazakoak** ez zirenak mehatxatzen zituzten arriskuen aurrean, uko egin zion setati berak ere ihes egiteko aukerari. Oskar Arana

Neurekoikeriaz ari naiz: sudurluzeok susmagarriago izango gara beti **ariar arrazako** poxpolinak baino. Joxerra Garzia

8 ***arraza ario***

Nazien teorien arabera, kultura eta usadio alemanak, **arraza arioaren** ondare genetikoarekin batera, arrisku bizian zeuden, inguruko kulturen eta azpi-arrazen eragin kaltegarriaren ondorioz -andrearen ezpainak mespretxu keinu adierazgarri batez okertu ziren. Alberto Ladron Arana

9 ***arraza beltz***

Une hartan frantziar Afrika ekuatorialean Txad probintziako gobernadorea Afrikako **arraza beltzeko** frantziar hiritar bat zen; eta kultur adopzioz frantziarra zen beltz hark behar bezala zertu zuen bere erantzukizun ofiziala Frantziar Erresistentziaren aldeko aukera eginez, eta honela mugimendu hari, ordu arte erabat Londresen oinarrituari, Frantziar Inperioan lehenengo sarrera segurua emanez. Iñaki Mendiguren

10 ***arraza-bereizkeria***

Ildo horretatik, apartheid, **arraza-bereizkeria**, bazterketa, kolonia-zapalkuntza eta atzerritarrek zertutako beste zapalkuntza eta domeinu forma batzuk sustatzen edo iraunarazten dituzten politikak zeharo baztergarriak dira, eta desagerrarazi beharrekoak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

11 ***arraza segregazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Horiek ukan zituen iturri, baita jazzaren bidez ezagutu beltzen bizi gogorra ere, beren aurkako **arraza segregazioa**. ETC-prentsa

Gainera, desobedientzia zibilaren ekintza mitiko bat aipatu zuen, horrek gizartean eduki duen garrantzia nabarmentze aldera: "1955ean, **arraza segregazioaren** garaian, Rosa Parksek ez zion autobuseko bere eserlekua gizon zuri bati utzi. ETC-prentsa

Hasteko, **arraza segregazioa** indargabetzeko sortutako eskubide zibilen aldeko mugimendu sozialeko buruen gertukoa, are laguna, zelako ordurako, besteak beste, Martin Luther Kingena, Muhammad Alirena eta Malcolm X-ena. ETC-prentsa

Estatu Batuetako hegoaldean indarrean zegoen **arraza-segregazioa**, 1950eko eta 1960ko hamarkadetako desegregazioa baino lehen, eta ia berriki arte Hegoafrikan egon den apartheid sistema. ETC-zientzia, zuzenbidea

1888an, estatutu-sorta bat onartu zuen Mississippik estatuak, eta, horren bidez, **arraza-segregazioa** onartu. ETC-literatura, saiakera

Edo, beste adibide bat jartzearren, nola neutralizatu dezakegun modu adimentsuan genero eta **arraza segregazioa** edozein lurralde edo mihiztadura motatan, arraza eta generoaren araberako hezkuntza eta produkzio sistema, enplegu eta soldata segregaziotik hasi eta ordaindu gabeko lan eta zereginetara. ETC-literatura, saiakera

1954an, AEBetako Gorte Gorenak **arraza segregazioa** eskola publikoetan inkonstituzionala zela erabaki zuen, baina eskola askotan, hegoaldekoetan bereziki, ez zuten araua obeditu. ETC-entziklopedia

Montgomeryko autobus publikoen aurkako boikota zuzendu zuen, agintariek autobusetako **arraza-segregazioa** alde batera utzi zuten arte. ETC-entziklopedia

12 *arraza zuri*

Cortés eta Moctezumaz (tira, gertakari historikoak ziren behinik behin), edo **arraza zuriaren** hondamendiaz (beroegi eta hezeegi giroa, egia esan, eztabaidan hasteko ere), teknikari mendebaldarraren sasi-garaipen katastrofikoaz (horra, Cortés teknikari bihurtua, sutautsa zeukalako!)... Joxe Austin Arrieta

Ukiezinak, Gizadiaren babesle-zaindariak, eta horien xapladak bizkarrean, eta horien baikortasuna, mozkor-arrailtzen diren arte: orduan marru-dardarizotan hasten zaizkizu, **arraza zuriaren** likidazio-salgai horiek, izter artean deus ez dutenak. Joxe Austin Arrieta

Hala, "**arraza zuria** zain dezagun» eta "**arraza zuriko** neba-arrebak, lasaitasunean egon zaitezte, ez dugu barkatuko» antzeko esaldi dorpeak irakur zitezkeen. Berria - Mundua

Esate baterako, **arraza zuri** ariarraren gehiagotasun naturalaren tesia, eta arraza afrikar eta asiarren ezein kultura landutarako ezgaitasun naturala, a priori teoria ez biziki neutral moduan susmagarria begitandu behar zitzaiona edozein pentsamendu pixka bat kritikori. Joxe Azurmendi

Voltaire-k (XVIII) ez du inola onartzen beltz mokolo burugabeak edo eskimo tutuluak eta Europako **arraza zuria** espezie berekoak izan daitezkeenik, arbaso berdinetatik etorritakoak, espezie berekoak ezin izan daitezkeen bezalaxe gizakiak eta tximinoak. Askoren artean

Are egokiagoa zen, gainera, holandarra zen aldetik: jatorri ia germaniar hark leundu egiten zuen nolabait **arraza zurikoa** izatea. Joxan Elosegi

13 *arrazagatiko segregazio* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Thurmond 1948ko hauteskundeetan presidentetzarako hautagai izan zen, eta **arrazagatiko segregazioa** sostengatzen zuen. ETC-prentsa

Parksek ezetz esan zuen eta hiriko **arrazagatiko segregazio** legea ez betetzeagatik atxilotu zuten. ETC-prentsa

Ikur konfederatuak abertzaletasunaren erakusgarri dira eskuin muturrekoentzat: eta kontrakoentzat, aldiz, horiek esklabotza eta **arrazagatiko segregazioa** gogorarazten dute. ETC-prentsa

Bertan Konstituzioa errefusatu eta beltzen bazterketa eta **arrazagatiko segregazioa** salatu zituzten. ETC-literatura, saiakera

Arrazagatiko segregazioa indargabetu berri zuten, eta Dorothyk arrazista zurien irainak eta harrikadak pairatu behar izan zituen. ETC-entziklopedia

14 *arrazako txakur*

Setter **arrazako txakurra** dauka. Berria - Euskal Herria

15 *asiar arraza* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

2000an burututako azken erroldaren arabera auzoan 7.928 lagun bizi ziren, horietatik %86,24a arraza zurikoak ziren, %1,93a arraza beltzekoak, %0,06a indiarrak, %6,84 **asiar arrazakoak**, eta %4,80a beste arraza batzuetakoak ziren. ETC-entziklopedia

Supremazismoa arrazakeria eta antisemitismoarekin lotu ohi da, bai eta arraza beltz eta afroamerikar, mulato, indigena, Australiako aborigen australiar aborigen, mestizo, **asiar arraza**, hispano nahiz juduen aurkako gorrotoarekin ere. ETC-entziklopedia

16 *giza arraza*

Unibertsalista Honako sineste hauek dituen elkarte erlijiosoa: Jainkoa unipertsonala dela, salbazioa ziurtatua dela **giza arraza** osoarentzat, eta arrazoia eta kontzientzia direla sinesterako eta praktikarako irizpidea. Xabier Olarra

Orduan ohartuko zara basamortuan badela bizitzarik, zeruan badela izarrik, eta **giza arraza** horrelakoxea delako egiten dutela gerra gerlariek. Xabier Aranburu

Handik kanpora pauso bat eman orduko, arrotzak ziren **giza arrazarentzat**. Anton Garikano

Giza arrazaren bilakaera luze eta gorabeheratsuan, planeta honetan dagoeneko heldu den garaian gizakiak, zientziaren eta teknologiaren bizkortze izugarriari esker, bere inguruan duen guztia anitz modutan eta orain arte ikusi gabeko neurrian eraldatzeko boterea eskuratu du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Giza arrazako zakurrek aberats okituei erakutsi ohi dieten begiramen zakurrezkoa azaldu zen haien aurpegietan. Jose Morales

Giza arrazako izaki batek maitatu zuela ematen zuen, eta berak, berriz, bizia eta zoriontasuna ukatu zizkion: laidora, lotsaz hiltzera kondenatu zuen. Irene Aldasoro

Zeuk egin zenuen Adam, zeuk egin zenuen Eva emaztea ere, gizonaren lagun eta euskarri izan zedin, eta biengandik sortu **giza arraza**. Zeuk esan zenuen: "Ez da on gizona bakarrik egotea; egin diezaiodan dagokion laguna". Elizen arteko biblia

Saint-Ange Anderea: Badakizu, Dolmancé, sistema horren bidez, azkenean, frogatzera helduko zarela **giza arrazaren** erabateko desagertzea ere ez zela naturari egindako zerbitzua baino izango?. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

17 *kaukasiar arraza* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

AEBetako Alheimer´s Association elkarteak egindako txosten baten arabera, afroamerikarrek ia bi aldiz arrisku handiagoa daukate Alzheimerren gaitza izateko, **kaukasiar arrazakoek** baino. ETC-prentsa

Kaukasiar arrazetan ohikoa da adinekoen artean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Papalagiak, singularrean Palagi, samoeraz Europako gizon-emakume zuriak edo **kaukasiar arrazakoak** deskribitzeko etnonimoa, etnia baten izena da. ETC-entziklopedia

18 *nafar ardi arraza* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Erronkariko gazta egun desagertutzat jotzen den Erronkariko ardiari lotuta egon zen. Egun gazta mota hau latxa ardiaren zein **Nafar ardi arrazako** abereen esnearekin egiten da. ETC-entziklopedia

19 *txakur arraza*

Gainerakoan, txakurrak baino ez daude: ez Lucyren **txakur arraza** garbiko ongi zainduak, baizik eta arraza nahastuko txakur ziztrin batzuk, leher egiteko zorian diren bi esparrutan gainez egiteraino pilatuak, zaunka, uluka, zinkurinka, aztoramenduz jauzika. Oskar Arana

20 *zaldi arraza* *(corpusean ez dago; ETCn **591** agerraldi)*

Zaldi arrazaren kontzeptuak Equus caballus espezietik sortutako ehunka **zaldi arraza** kontutan hartzen du. ETC-entziklopedia

Egun berean, merkatu estalian, lehen aldikotz, Frantziako zortzi (bederatzietarik) laneko **zaldi arrazen** aurkezpena proposatua da. ETC-prentsa

Zaldi arrazak ezagutzeko eta gazta nola egiten den ikusteko aukera izan zuten. ETC-prentsa

Orain arte **zaldi-arrazak** edo sagar barietateak gurutzatzea posible zen, baina orain mizelio bat sar dakioke zaldiari, edo tomatearen ezaugarri bat izokinari. ETC-prentsa

Bertako Burgete **zaldi arraza** bultzatzeko leihaketak ere egin dira azken urteetan, eta horrek bizia eman dio ganadu feriari, baina krisiarekin ez dakite hurrengo urteetan berriz errepikatuko den. ETC-prentsa

Egun, hazteko bidean dagoen **zaldi arraza** hori bultzatzen ari dira. ETC-prentsa

Animalia hau pottoka eta kanpoko **zaldi arraza** baten arteko nahasketaren emaitza da. ETC-prentsa

Klub hipikoak eta Bizkaiko Pottoka elkarteak antolaturik, Euskal Herriko **zaldi arrazaren** otzantasuna agertzeko erakusketa, paseoa eta zaldi jokoak izango dira Goikomendin, eta, bezatze klasikoaz gain, bezatze naturala ere egingo dute. ETC-prentsa

Eta Lurra, jainkoen artean maiteen, aki ezina eta agor ezina, xahutzen du, urtez urte goldeaz iraultzean, eta **zaldi arrazaz** lantzean... ETC-literatura, saiakera

Zaldi arraza noble bat ba omen da ezin gehiagoraino akitzen eta xaxatzen dituztenean berek beren buruari, senez, zain bat hozkatzen diotenak arnasa hobeki hartzen laguntzeko. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardi arraza (3); **arraza afrikar** (3); **arraza bakoitzaren** (3); **arraza bat** (15); **arraza baten** (5); **arraza berekoak** (5); **arraza berri** (6); **arraza berri bateko** (3); **arraza da** (9); **arraza espainol** (5); **arraza espainola** (7); **arraza espainolak** (5); **arraza espainolaren** (7); **arraza eta hizkuntza** (3); **arraza ezberdinen** (3); **arraza guztietakoak** (3); **arraza hori**

(3); **arraza horren** (5); **arraza izpiritual** (3); **arraza kontua** (3); **arraza legeak** (3); **arraza mediterranear** (5); **arraza nagusi** (3); **arraza zuriaren** (4); **bere arraza** (5); **beste arraza** (4); **bi arraza** (7); **euskal arraza** (8); **giza arraza** (8); **heroien arraza** (3); **judu arraza** (3)

---

arrazadura *iz* narrioa.

Noiz eta Napolin frantsesen kontrako gerla piztu baitzen, eta noiz eta, haren ondorez, berretu, emendatu eta hedatu baitzen narrio eta **arrazadura** hura, erraiten zutelarik batzuek ezen soldadu frantsesen kulpa eta faltagatik izan zela, eta bertzeek napolitarrenagatik, ongi dakikezun bezala. Joan Mari Irigoien

---

arrazakeria **1** *iz* arraza bat besteak baino hobea dela eta besteak menderatzeko eskubidea duela dioen ideologia.

Arrazakeriaren aurkako lege zorrotzenak ere ez ditu desagerraraziko gure baitan hain errotuak ditugun eskema xenofoboak. Anjel Lertxundi

Arrazakeria zen, ezbairik gabe, eta bitxia iruditu zitzaidan, ez niolako sekula santan iritzi politikorik ezagutu. Iban Zaldua

Madrazok argitu bezala, Kontseiluaren helburu nagusiak ijitoen bizi baldintzak hobetzea, gizarteari ijitoen kultura ezagutaraztea, eta ijitoen kontrako bazterketa eta **arrazakeriari** aurre egitea dira. Berria - Euskal Herria

"Bagoiko azkenaren sindromea" deitzen zaio honi **arrazakeriari** buruzko ikerlarien artean. Ana Urkiza

Eta testu guztiaren atzean, bizitzea tokatu zitzaion agertokiko atzeko oihal bezala, egoera politikoa, esespena, gerra eta **arrazakeria**, bizitza eta heriotza. Josu Zabaleta

Arkakusoa errebindikatzen zuten **arrazakeriaren** aurkakoek sinbolotzat, ez baitu odolaren kausaz inor baztertzen. Joxerra Garzia

Saiakera honetako sarreran antropologiari eskainitako ataltxoan genioen modura, gainerakoek ez bezala janez ere eratzen baitugu geure burua, arrazoi askorengatik: **arrazakeria**, bereizketa sozial edo ekonomiko, osasun arazo, fobia edo filia hezigaitzak, etc. Edorta Agirre

Geroztik pentsatu ere egin izandu dut, **arrazakeria** edo bere familiko sineste gutiustekoren bategatik ez ote duen izanen oinekiko obsesio hori, seme alabei ere beti oinetara begiratzen baitie: batek behatz ttikia motxa duela, besteak luxea... Patziku Perurena

Madrazok argitu bezala, Kontseiluaren helburu nagusiak ijitoen bizi baldintzak hobetzea, gizarteari ijitoen kultura ezagutaraztea, eta ijitoen kontrako bazterketa eta **arrazakeriari** aurre egitea dira. Berria - Euskal Herria

Hura guztia, jakina, ez dago zer makabrotzat soilik jotzerik; **arrazakeria** eta xenofobia ere dantzatuko nituzke basakeria horien arrazoitzat. Karlos Linazasoro

2 ***arrazakeria zientifiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Arrazakeria zientifikoa XVIII. mendean hasi loratzen zen, Charles Darwinen ikerlan ebolutiboek eragin handia izan zutelarik, eta baita filosofo batzuek idatzitako ideiak ere, hala nola Aristotelesenak. ETC-entziklopedia

Neurri batean, elkartu zirenean, **arrazakeria "zientifikoaren"** lehenengo teoria sendoa sortu zen (baldin eta "zientziatzat" jotzen badugu -gaizki ulertu zuten askok egin zuten bezala- ustez zenbaki ugariz babestuta dagoen edozein aldarrikapen). ETC-literatura, saiakera

3 ***arrazakeriaren aurkako***

Berton jaioak izan ala ez, "euskal herritar guztien eskubide ororen alde» egin zuen atzo Batasunak, **arrazakeriaren aurkako** astearen karietara. Berria - Euskal Herria

Erakundeko zuzendari Chris Myant "izugarri kezkatuta» agertu zen asteazkenean, eta dei egin zien halako kasuak ezagutzen dituzten fakultateei edo ikasleei **arrazakeriaren aurkako** erakundearekin berehala harremanetan jartzeko. Berria - Mundua

Faltsutzaileak **arrazakeriaren aurkako** militanteak ziren eta bere helburua bete-betean erdietsi zutela esan daiteke. Txema Ramirez de la Piscina

Arrazakeriaren aurkako lege zorrotzenak ere ez ditu desagerraraziko gure baitan hain errotuak ditugun eskema xenofoboak. Anjel Lertxundi

Arkakusoa errebindikatzen zuten **arrazakeriaren aurkakoek** sinbolotzat, ez baitu odolaren kausaz inor baztertzen. Joxerra Garzia

4 ***arrazakeriaren kontrako***

Korsikako alderdi abertzaleek **arrazakeriaren kontrako** manifestazioa egin zuten atzo Cortin. Berria - Mundua

Horri guztiari aurre egiteko, **arrazakeriaren kontrako** legeak indartzea eta aurreiritzien aurka ekiteko neurriak hartzea gomendatu du IHFk. Berria - Harian

Kattalin **arrazakeriaren kontrako** elkarte batean engaiatu zen, bereziki. Eneko Bidegain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrazakeria bultzatzen (4); **arrazakeria elkarteak** (3); **arrazakeria eta xenofobia** (3); **arrazakeria neurtzeko** (4)

arrazakeriaren arabera (3); **arrazakeriaren aurka** (6); **arrazakeriaren aurkako** (14); **arrazakeriaren aurkako taldeak** (3); **arrazakeriaren eta xenofobiaren** (6); **arrazakeriaren kontrako manifestazioa** (3)

arrazakeriari buruzko (4)

arrazakeriaz jokatu (3)

---

arrazakide *iz* arraza bereko pertsona.

Bere **arrazakide** askok bezala, negoziobidea hartu zuen, aberasteko eta gerorako habe sendoak, edozein ekaitzek botatzen gaitzak, eraikitzeko. Felipe Juaristi

---

arrazatsu *izond* arrazazkoa.

Erromatarra barbaroa da, "arimagabeko, ezfilosofiko, arterik gabeko, **arrazatsu** brutalitateraino, kupidagabeki arrakastari begiratua, kultura heleniarraren eta ezerezaren artean kokatzen da". Joxe Azurmendi

---

arrazatu *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* **1** *izond* narriatua, hondatua.

Nola gure lehenbiziko aita hark, gure naturaleza haur, bere bekhatuaz narriatu, **arrazatu**, eta eritokitu baitzuen, handik gara hain arrenkuratsu, inzirinatsu, eta on behar. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 *izond* gizarteak ezarritako arraza kategoriaren ondorioz onura edo bazterketa jasotzen duen pertsona. ik**arrazializatu**.

Emakume **arrazatua** du gogoetaren subjektu Naïma Hamrouni ikerlari feminista quebectarrak. ETC-prentsa

---

arrazazko *izlag* arraza duena ardatz.

Adibide hau eta juduena erabiltzen dira frogatzeko arraza-berezitasun deituak ez direla benetan batere **arrazazkoak**, baizik eta komunitate horien esperientzia historikoei zor zaizkienak. Iñaki Mendiguren

---

arrazial *izond* arrazari dagokiona.

Gure amak kontatu zion zer gertatu zitzaion urte asko lehenago bere adiskide baten semeari gerra aurretik, are jazarpen **arrazialaren** aurretik. Fernando Rey

Giménez Caballero-ren mestizaje **arrazialaren** apologiara itzulirik: haren aurretik A. Ganivet gogoratu behar da. Joxe Azurmendi

Gaur egun, AEBetako 4,7 milioi herritarrek ezin dute botoa eman justizia sistemaren bazterketa **arrazial**, etniko eta ekonomikoengatik. Berria - Mundua

arrazialismo *iz* gizateria arrazen arabera banatzea defendatzen duen korronte filosofikoa.

Zientzia espainolaz, literaturaz, arteaz, eta zernahiz diharduela, itxaropena espresatzen duela edo desesperantza, Ortega-ren ikusmoldeak **arrazialismo** sarkor batek inpregnatuak dira. Joxe Azurmendi

---

arrazialista *iz* arrazialismoaren aldekoa.

Azterketa osatzeko, garaiko autore **arrazialista** eta arrazista europarrak, nik egiten dudan baino hobeto ezagutu beharko lirateke, haien presentzia eta oihartzunak Ortega-ren lerroetan puntuz puntu seinalatzen joateko. Joxe Azurmendi

---

arrazializatu, arrazializa(tu), arrazializatzen *(corpusean ez dago; ETCn **93** agerraldi, horietatik **91** azken sei urteetan)* **1** da/du *ad* gizarteak ezarritako arraza kategoriaren ondorioz onura edo bazterketa jaso.

Esate batera, gu zuri garen heinean, **arrazializatutako** pertsona baten aurrean -guk arrazializatzen duguna- pribilegiodun gara, baina beltz hori gaztelaniadun edo frantsesdun den heinean, pribilegioz joka lezake euskal hiztun euskaltzalearen aurrean. ETC-literatura, saiakera

Esate batera, gu zuri garen heinean, arrazializatutako pertsona baten aurrean -guk **arrazializatzen** duguna- pribilegiodun gara, baina beltz hori gaztelaniadun edo frantsesdun den heinean, pribilegioz joka lezake euskal hiztun euskaltzalearen aurrean. ETC-literatura, saiakera

Bestearen begiradak **arrazializaturiko** gorputzetik ihes egin nahiko luke subjektu kolonialak askatasunez bizi ahal izateko, baina bestearen begirada sarkorra bere izatearen barru-barruraino sarturik dauka. ETC-prentsa

Eta ez soilik emakumeei: migratutako edo **arrazializatutako** pertsonei ere bai. ETC-prentsa

Boto-paperen bat hautetsontziren batean sartzeko eskubidea duten **arrazializatutako** pertsona guztiengana zuzentzen naiz: xenofobiaren, arrazakeriaren eta faxismoaren aurka ondo apuntatzeko. ETC-prentsa

Ezin ditugu ahaztu **arrazializatutako** pertsonak, eta ezin dugu ahaztu zapalkuntzen intersekzionalitatea oraindik ere ezkutuan gelditzen dela. ETC-prentsa

Americanah liburua Chimamanda Ngozi Adichiek idatzi zuen, eta Estatu Batuetara ailegatzerakoan izandako esperientziak kontatzen ditu: besteak beste, bere burua **arrazializatuta** ikustearena lehenengo aldiz. ETC-prentsa

2 (era burutua izenondo gisa)

Ia ezin saihestuzkoa izan zen ohartzea nola Trump, bere kanpainan, sumindura **arrazializatu** guztiz kezkagarri bat baliatzen eta elikatzen aritu zen, eginiko promesak bete ez dituen ekonomia honek hauspotutako sumindura hori. ETC-literatura, saiakera

Emakume langile, **arrazializatu**, zahar, gazte, joera eta identitate anitzeko, nazio kolonizatuetako, lehen munduaz kanpokoak daude. ETC-literatura, saiakera

Ez dute modu berean funtzionatzen pertsona guztiekin eta akats gehiago egin ohi dituzte pertsona **arrazializatuak** identifikatzeko garaian, esate baterako. ETC-prentsa

Azaldu dutenez, eztabaida amaitu zenean, feminista batzuek emakume **arrazializatuei** eraso zieten: "Ez zen soilik hitzezko erasoa izan: haien espazioa eta gorputzak inbaditu zituzten". ETC-prentsa

Gizon **arrazializatuak** gehiago kriminalizatzen diren bezala, emakume **arrazializatuak** ere gehiago sexualizatzen dira, indarkeria maila handiagoa jasaten dute, eta erantzun horien beharra dute. ETC-prentsa

Emakume migratzaileak eta **arrazializatuak** gizartearen parte garrantzitsuak gara. ETC-prentsa

Gogorarazi du komunitate **arrazializatuek** denbora dezente daramatela egoera salatzen. ETC-prentsa

Kide **arrazializatuek** eskatu bezala, pribilegioak indarrez inarrostea. ETC-prentsa

Aldiz, emakume **arrazializatuak**, gazteak, gay eta lesbianak heterodoxotzat jo izan dira, arriskutsutzat. ETC-prentsa

Izan ere, zigorra erabiltzen da herritar guztiak menperatzeko, baina baita talde **arrazializatuak**, pobreak eta zaurgarriak kontrolpean izateko ere. ETC-prentsa

Sistema zapaltzaile honen beso armatuak, Poliziak, pertsona **arrazializatuak** kriminalizatzen ditu, kapitalaren etxegabetzeak babesten ditu jendea kale gorrian uzteraino, eta errefuxiatuak deportatzen ditu. ETC-prentsa

Umoreari eta zentsurari buruz diharduela, Aysa Nuevek interesgarri zaizkidan honako galderak planteatzen ditu: Munduan zehar milioika pertsona historian lehen aldiz ahotsa goratzen ari dira, emakumeen, LGTB pertsonen, aniztasun funtzionala dutenen nahiz **arrazializatuen** iritziak entzuten ari gara lehen aldiz eta hau eskubideetan atzerantz egitea da benetan? ETC-zientzia, zuzenbidea

2019. urtean Emakunde Saria jaso zuen, aitorpen hori eskuratu duen lehenengo emakume etorkin eta **arrazializatua** izanik. ETC-entziklopedia

Baina ez hori bakarrik, klase sozial prekarioenek, adibidez, langileek, migranteek edo pertsona **arrazializatuek** ere karga hori izaten jarraitzen dute. ETC-entziklopedia

---

arrazializatze *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* gizarteak ezarritako arraza kategoriaren ondorioz onura edo bazterketa jasotzea.

Horregatik, klasismoa **arrazializatzeak** esan nahi du pobreari zaion gorrotoa zuzenean lotzen zaiela gizon, zuri, aberats, heldu eta desgaitasunik gabeak ez garen guztiei. ETC-prentsa

---

arrazialki *adlag* arrazaren arabera.

Hala, bada, **arrazialki** alemana deklaratzen da "odol aleman edo auzokideko hiritarra, zein ere baita borondatezko eta gai herri eta Inperio alemanari leialtasunez zerbitzatzeko". Joxe Azurmendi

---

arrazio ik **errazio**.

---

arrazional **1** *izond* arrazoimenari dagokiona; arrazoimenaren araberakoa. ik **arrazoizko**.

Kale zabalak, parkeak, eraikin **arrazionalak** eta, han-hemenka, oraintsu eraikitako beste batzuk, azkenok publizate eta guzti. Edorta Jimenez

Ti Kern etxerantz gindoazela, euriak are indartsuago eta haizeak ausarki astintzen zituen landa hutsak zeharkatzean, ene buru txar **arrazionalegiaren** logika galdera zenbaitek uhertzen zuten. Itxaro Borda

Erabat **arrazionala** duk gainera, errefutaezina. Harkaitz Cano

Hori da ideologia: ideien sistema **arrazionala** sartzen da, balio unibetsalez apaindua, baina berez garai bateko sinesmen eta isla da» Berria - Kultura

Gauza guztiak modu **arrazionalean** eta ordena baten arabera gertatzen direla sinetsi nahi izaten dugu. Koro Navarro

Horrelako izenak herrien eta hirien planifikazioarekin hasten dira; planifikazio **"arrazionalarekin"**, beraiek dioten moduan, arrazoia ideien geometriarekin nahasiz. Iñaki Segurola

Alde batetik, atzoko eta gaurko gudariekiko halako lilura bat geratu zitzaidan, **arrazionala** baino gehiago emozionala beharbada, ni neu horrelako abenturetan sartzeko aski koldarra nintzelako, eta inhibizio hori konpentsatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Batetik dio itxaropen **arrazionalen** teoriak merkatu finantzarioak **arrazionalki** aritzen direla, eta prezioak, eskuragarri den informazioaren arabera, enpresen benetako balio erreala emanez ezartzen direla. Iñaki Heras

Zelotearen ethos berezia emozionala eta intuitiboa da, baina politika hori egin daiteke hotz-hotzean oinarri **arrazionalen** arabera. Iñaki Mendiguren

Eta azkenik, unibertsitate produktuen eskaintza osagarria egiteko biderik zuzenena eta **arrazionalena** litzateke. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nik bilatu nahi dudan filosofiak kosmogonia bat izan behar du lehendabizi, munduaren osaketaren hipotesi **arrazional** bat; eta gero, bizitzaren eta gizonaren sorreraren azalpen biologiko bat. Josu Zabaleta

Abantaila konparatiboen printzipioaren araberako espezializazio **arrazional** batetik sortzen den nazioarteko egoera ezin hobea, baldintza horietan, oso badaezpadakoa gertatzen da. Koro Navarro

2 *izond* adimena duena. ik **adimendun**.

Jakin beharra dago gizona arima hirukoitz batek piztua dagoela: begetatiboa, animala eta **arrazionala**. Fernando Rey

Metafora honen bidez adierazi nahi da gizakiaren baitan bi izate daudela: izate **arrazionala**, alde batetik, eta, bestetik, izate animaliazkoa. Martin Anso

Kementsua zarelako maite zaitut, polita, **arrazionala**, askea... Memoria arakatu dut, bere nire izendaketa helduleku; Maite nau, esan dut; Polita zara, dio; eta ispiluan konprobatu dut. Eider Rodriguez

3 *izond* zenbakiez mintzatuz, bi zenbaki osoren zatidura gisa adieraz daitekeena.

Gerora **arrazionalak** esan zitzaien zenbaki horien zeregin nagusia geometriako magnitudeak zenbakiz adieraztea zen; haiek neurtzea, alegia. Jon Muñoz

Inoiz entzun al da, nolabait esateko, baldintzen beharrezko ezjakintasunagatik eziurtzat jo denik zein hartueman zehatz duen diametroak zirkuluarekin zenbaki **arrazionaletan** edo irrazionaletan? Ibon Uribarri

4 ***igurikimen arrazional*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ekonomian, **igurikimen arrazionalak** ekonomia-eragileek euren erabakiak hartzeko informazio guztia baliatzen dutela dioen hipotesia da, politika ekonomikoak eta eredu ekonomikoek ezarritakoaren arabera. ETC-entziklopedia

Bai, ekonomian **igurikimen arrazionalen** teoriak azaltzen du hori. ETC-prentsa

Inflaziorako **igurikimen arrazionalak** hasiko dira banku zentralaren estrategia hori kontuan hartzen eta, beharbada, hiperinflaziorako bidea zabalduko da, Ekonomiarentzat guztiz kaltegarria dena. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***zenbaki arrazional***

Inoiz entzun al da, nolabait esateko, baldintzen beharrezko ezjakintasunagatik eziurtzat jo denik zein hartueman zehatz duen diametroak zirkuluarekin **zenbaki arrazionaletan** edo irrazionaletan? Ibon Uribarri

Frogatu zuten karratua 2 duen **zenbaki arrazionalik** ezin dela existitu. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 1 aldiz agertzen direnak)

adierazgarritasunaren definizio arrazional (1); **adierazpenaren ikuspegi arrazional** (1); **adierazteko arrazional hitza** (1); **adigarri edo arrazional** (1); **animalia arrazional** (2); **antolamendu arrazional** (1); **araberako espezializazio arrazional** (1); **arima arrazional** (2); **arima arrazional garbi** (1); **arima arrazional honen** (1); **arrazional eta arrazoigarriaren** (1); **arrazional eta aurrezkizkoa** (1); **arrazional eta instrumentala** (1); **arrazional eta irrazionalen** (1); **arrazional eta jakintsua** (1); **arrazional eta kontzienteen** (1); **arrazional eta librerik** (1); **arrazional eta matematikoa** (1); **arrazional eta nahimenduna** (1); **arrazional eta nahimenezko** (1); **arrazional eta orekatua** (1); **arrazional eta ponderatu** (1); **arrazional eta tematien** (1); **arrazional eta toleranteko** (1); **arrazional eta unibertsal** (1); **arrazional garbi** (1); **arrazional gutxienekin ekiten** (1); **arrazional guztia desagertzen** (1); **arrazional hitza erabiltzeak** (1); **arrazional hitzak bereizten** (1); **arrazional hitzaren kaltean** (1); **arrazional hitzek kontzeptu** (1); **arrazional honen bakearen** (1); **arrazional honentzat akatsa** (1); **arrazional honetan fisikoa** (1); **arrazional horiek lortzea** (1); **arrazional horren ariketa** (1); **arrazional izango litzateke** (1); **arrazional minimo baten** (1); **arrazional ororen helmuga** (1); **arrazional osoa** (2); **arrazional osoa erortzen** (1); **bada borondate arrazional** (1); **baliabideen erabilpen arrazional** (1); **balorazio arrazional** (1); **bertute arrazional horiek** (1); **betiko bilakatuz arrazional** (1); **borondate arrazional** (1); **datuon balorazio arrazional** (1); **definizio arrazional bat** (1); **dialektika arrazional ororen** (1); **dogma arrazional batzuen** (1); **duten dogma arrazional** (1); **egiazko bertute arrazional** (1); **egoismo arrazional minimo** (1); **enpirikoarekiko harreman arrazional** (1); **erabilpen arrazional** (1); **erlijio arrazional** (1); **eskema sailkapen arrazional** (1); **eskola arrazional** (1); **espezializazio arrazional batetik** (1); **ez arrazional batez** (1); **ezagutza arrazional** (1); **gauza arrazional bat** (1); **gauza sentigarrietan arrazional** (1); **gizakia animalia arrazional** (1); **gizakiak arima arrazional** (1); **harreman arrazional** (1); **hastapen arrazional** (1); **herritar arrazional** (1); **hipotesi arrazional bat** (1); **ikuspegi arrazional** (2); **ikuspegi arrazional bat** (1); **irrazional eta arrazional** (1); **izadiaren kontsiderazio arrazional** (1); **izaki arrazional** (2); **jakintsuen erlijio arrazional** (1); **jardute arrazional horren** (1); **kalkulu arrazional baten** (1); **kontsiderazio arrazional honetan** (1); **kosmologia arrazional** (1); **lerro arrazional** (1); **modu arrazional** (3); **modu arrazional batean** (2); **modu arrazional batez** (1); **moral eta arrazional** (1); **muga arrazional gutxienekin** (1); **mugimenduen ordenamendu arrazional** (1); **mundu arrazional** (1); **nahimen arrazional** (1); **oinarri arrazional** (1); **ordena arrazional baten** (1); **ordenamendu arrazional osoa** (1); **osaketaren hipotesi arrazional** (1); **pertsona izaki arrazional** (1); **politika estrategiko arrazional** (1); **psikologia arrazional** (2); **psikologia arrazional guztia** (1); **psikologia arrazional osoa** (1)

razional adierazteko arrazional (1); **sailkapen arrazional** (1); **sentigarrietan arrazional** (1); **ulerturiko egoismo arrazional** (1); **ustezko kosmologia arrazional** (1)

---

arrazionalismo

1 *iz* arrazoimenari lehentasuna ematen dion jarrera.

"**Arrazionalismo** lojikoak, munduaren sorrera bakar eta ximplearen dogma ontzat emanez, Big Bang delako asmazio merkea sortu du, denboraren hasierari buruzko kirtenkeria edo hutsetiko sorreraren zirtzilkeria. Patziku Perurena

Jantse-nismo gisa zokoratua, deismo, **arrazionalismo**, agnostizismo eta ateismo gisa agertu zen berriro. Iñaki Mendiguren

Ikusmenean soilik oinarrituriko komunikazio prozesua simulazio hutsa da, komunikazio-kodeen prostituzioa, mendeetan atzera egitea, **arrazionalismoaren** aurreko garaietara bueltatzea. Txema Ramirez de la Piscina

Oso ondo Asier, logika hutsa baino **arrazionalismo** zorrotzagorik ez dago. Pako Aristi

Eta nik berriz **arrazionalismo** horren argumentuak ezagutzen nituela, Errepublika edo laikotasunaren objektibitatearenak naski. Piarres Aintziart

2 ***arrazionalismo arkitektoniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Arkitektura modernoaren eta arkitektura arrazionalista **arrazionalismo arkitektonikoaren** abiatzaileetakoen artean nabarmendu zen, protomodernotzat eta protoarrazionalistatzat sailkatua da. ETC-entziklopedia

Eta, **arrazionalismo arkitektonikoa** uste sakon eta pertsonal bat bilakatu zitzaien arkitekto haiengan, borondatezko atzerriratzea naturaltasun garbiz eman zela dioen ondoriora iritsi zen. ETC-entziklopedia

3 ***arrazionalismo kritiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)*

Arrazionalismo kritikoa (antimetafisika), Karl Popperrek epistemologiarako proposaturiko sistema filosofikoa da. ETC-entziklopedia

1961 eta 1968 bitartean, positibismoarekin eta, bereziki, Popperren **arrazionalismo kritikoarekin** izan zuen ika-mika sonatuan nabarmentzekoa da Habermasek bere lehiakideen argumentuak kritikoki bereganatzeko egin zuen ahalegina. ETC-prentsa

Biolentziaren aurrean, "**arrazionalismo kritikoa**" erabiltzen duten pertsonen beharra aldarrikatu zuen. ETC-prentsa

Ikus daitekeenez, jarrera didaktiko kognitibistatik gertuko iritziak jasotzea bideratzen zuten a) eta b) alderdiek; hau da, **arrazionalismo kritikoko** berezkoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hemendik aurrera bi jarrera arrazionalista bereiziko ditut, beraz, "**arrazionalismo kritikoa**" eta "arrazionalismo ez-kritikoa" edo "arrazionalismo hedatua" deituko ditudanak. ETC-literatura, saiakera

Orduan arrazoiaren kontzeptuek eta **arrazionalismo kritikoak** ordezkatu zituzten Erdi Aroko tradizioak eta dogmak; eta horrek guztiak, halabeharrez, monarkiaren ahulezia ekarri bazuen ere, ez zuen lortu monarkia guztiz suntsitzea, Frantziako iraultzara arte, behinik behin. ETC-literatura, saiakera

Inkonsistentziaren kritikari lau esparrutatik erantzun zaio: logikaren esparrutik, antropologiatik, **arrazionalismo kritiko** alemaniarretik eta amerikar pragmatismoaren esparrutik. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arrazionalista

1 *izond* arrazionalismoari dagokiona.

Azkenean Britainiak auzoko kontinentalekin bat egin zuenean 1752an, britainiar publikoak oso **arrazionalista** zen hemezortzigarren mendean badirudi askoz iskanbila handiagoa atera zuela ziur aski hain ilustratua ez zen kristau-aroko hamaseigarren mendean mundu katolikoak atera zuena baino. Iñaki Mendiguren

Eskultura abstraktua, baina, oinarrian, **arrazionalista**. Berria - Kultura

2 *iz/izond* arrazionalismoaren aldekoa.

"Jesus! jakobinista, **arrazionalista**, errepublikarra! Piarres Aintziart

Bera bezalako **arrazionalista** kontsekuenteari zegokionez, ezein interpretazio bitxi ukaturik, ez zuen beste ezer ikusi nahi izan gertaera horretan, eta irakurtzen jarraitu zuen. Jon Muñoz

"Arrazionalista hutsa nauzu" esan nion irribarrez begi bustietara zuzen begiratzen niola, eta Hiztegi Entziklopedikoa saltzea nuela ofizioa. Ramon Saizarbitoria

3 *arkitektura arrazionalista* *(corpusean ez dago; ETCn **103** agerraldi)*

Arkitektura arrazionalistaren jarraitzaileak ziren biak, eta tradizioa modernitatearekin nahasten zuen proposamena aurkeztu zuten. ETC-literatura, saiakera

Margolan hauen ondoan **arkitektura arrazionalistak** agertzen dira: Donostiako Nautikoa, AEG enpresaren pabiloia... berriz ere kolore lauak eta ingurune zehatzak azpimarratuz. ETC-prentsa

36ko gerra osteko Euskal Herrian aurki daitekeen **arkitektura arrazionalistaren** adibide bakanetakoa da, eta horrek are beharrezkoago bihurtzen du, Zuaznabarren ustez, eraikinari zutik eustea. ETC-prentsa

Arkitektura arrazionalista da, oso ordenatua eta uniformea. ETC-prentsa

Guztiak **arkitektura arrazionalistaren** ildokoak, eta aurrez sekula erakutsi gabeak dira haietariko asko. ETC-prentsa

Erakusketako testuan diozunez, adibidez, duela hamar urte bukatu gabe utzitako eskultura serie batera eraman zaitu aurten bukatu duzun Gineako egurrezko zoruak eta **arkitektura arrazionalista** uztartzen dituen pieza sortak. ETC-prentsa

XX. mende erdialdera gutxi gorabehera, Espainiako **arkitektura arrazionalistak** koloniekin izandako harreman eta eragin zuzenaren inguruan gogoeta egitera. ETC-prentsa

Gerra ondorengo **arkitektura arrazionalistaren** azken ikurra, Donostian, Pasai Antxoko mugan. ETC-prentsa

Arkitektura eta hirigintza ofi ziala, gerraurreko urteetan garatu eta orokortu zen hirigintza liberal eta **arkitektura arrazionalistaren** kontrako kritikekin lagundu zen, jada Alemanian, Italian eta Portugalen ere egin zituztenak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Euskal Herriko **arkitektura arrazionalistaren** aleetako bat. Itsasontzi itxura dauka, eta 1995ean monumentu historiko artistiko izendatu zuten. ETC-entziklopedia

1929an Jose Manuel Aizpurua eta Joakin Labaien arkitektoen diseinuan oinarrituta Kontxako hondartzaren ertzean eraikia, **arkitektura arrazionalista** hutsa. ETC-entziklopedia

1892 - Manuel Ignacio Galíndez, bizkaitar futbolari eta arkitektoa, **arkitektura arrazionalistaren** aurrekaria (h. 1980). ETC-entziklopedia

---

arrazionalitate *(corpusean ez dago; ETCn **76** agerraldi)* *iz* arrazionala denaren nolakotasuna. ik **arrazionaltasun**; **arrazoizkotasun**.

Edo beste era batera esanda, gutxiengo esentzialista baten apetaz hizkuntza bat inposatzen zaiola gehiengoari **arrazionalitatearen**, justiziaren eta demokraziaren kontra. ETC-literatura, saiakera

Ez bakarrik -berriz diot- prozesu kapitalistak bitarteko materialen eta nahimen sortzailearen ekarpena egiten duelako, baizik askoz era funtsezkoagoan **arrazionalitate** kapitalistak gogamen-azturak sortu dituelako, zeinei esker garatu baitira ospitaletan aplikaturiko metodoak. ETC-literatura, saiakera

Ba al dute "**arrazionalitatearen** " bi aipamenek zerikusirik? ETC-literatura, saiakera

Konplexutasunaren zientzien **arrazionalitate** berriak osotasuna egitura bizitzat jotzen du, eta osotasun-maila askotan agertzen da osotasun orokor hori. ETC-literatura, saiakera

Sistema kapitalistak **arrazionalitate** ekonomikoaren mugarik gabeko hedapena du ezaugarri nagusi. ETC-literatura, saiakera

Malgutasunerako eta **arrazionalitaterako** nolabaiteko joera erakutsi du, nahiz eta ez izan oso handia. ETC-prentsa

Baina, **arrazionalitate** militarrak ez du atsedenik hartzen eta orain marka guztiak hautsi nahi ditu" hauts adimentsua" deritzon azkeneko asmaketa sortuz. ETC-prentsa

Iraupeneko nekazarien **arrazionalitate** berezia ohiko teoria mikroekonomikoan erabiltzen den homo economicus-aren ideia hertsitik ezberdinduz, lurzoruaren narriadura aztertzeko abiapuntua izan behar dela argudiatzen dut. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hamaika aldagai hartu behar dira kontuan, loturak egin euren artean eta horrela **arrazionalitate** burokratikoa, arrazoitik gutxi duena, zalantzan jarri gizarte-egitura berri baten bidean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gizarte-jokabideak, ordea, ezin ditugu **arrazionalitate** hutsera mugatu, gizarte-faktore errotu eta kementsuek jokatzen baitute bertan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, globalizazioaren testuinguru zein jatorriaren gainean arreta ipintzeak **arrazionalitate** ekonomikoaren esparrura eraman gaitu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortaz, justifikazioaren kontzeptu koherentista honek, era oso estu batean konektatu egiten da **arrazionalitate** eta ardura epistemikoaren kontzeptuekin. ETC-entziklopedia

Bertan **arrazionalitate** karismatikoen garrantzia azpimarratu zuen, eta estatua biolentziaren monopolioa duen erakunde gisa definitu. ETC-entziklopedia

---

arrazionalizatu, arrazionaliza, arrazionalizatzen du *ad* arrazoimenaren neurrietara ekarri.

Zabor-bilketako kamioien denborak eta kostuak **arrazionalizatzeko**, emaitzak optimizatzeko helburuz, lortu ditek ibilbide perfektuaren adierazpide den formula matematikoa. Iñaki Iñurrieta

XX. mendearen lehenengo herenean, tratatu erromatar zaharraren korapiloak askatu eta gehien erabiltzen ziren hizkuntzetara itzultzeko interes biziberritu eta **arrazionalizatua** ikusi zen. Santiago Iruretagoiena

Hortik dator gorputza lanerako tresna modura balioestea, medikuntza beste zientzien ereduen arabera **arrazionalizatzeko** kezka, biztanleriaren osasun mailari eusteko ahaleginak, terapeutikari eskainitako arreta, bere ondorioen iraupenari eta iraupen luzeko fenomenoak erregistratzeari. Xabier Arregi

Beldurraren iturburua ez da arrisku jakin ezagutu bat, arrazoizkoa, **arrazionalizatu** edo arrazoiaren neurrietara ekarri ezin daitekeena baizik. Josu Zabaleta

Udako Ikastaroan bi aurkikuntza egin nituen: lehenengoa, etxeko hizkera **arrazionalizatzeko** metodoa, konturatzea bazirela ortografia bat eta adiztegi bat, euskararen sistema komun batean sartzen zirenak, baina tokian tokiko aldaerak zirela biziak eta aberatsak. Ana Urkiza

---

arrazionalizatzaile *iz* arrazionalizatzen duena.

Egutegi eta aroetatik pisu eta neurrietara eta dirura igarotzen garenean, gizarte-erabileren arlo honetan adimen **arrazionalizatzailea** aske mugitzen da, erlijiozko eskrupuluen zentsurapean egon gabe. Iñaki Mendiguren

---

arrazionalizazio *iz* arrazoimenaren neurrietara ekartzea.

Aldi berean, auzitan jarri ditu probidentzia -estatu keynestarrak osaturiko gizarte-konpromisoak, eta, apurka-apurka, estatuen aginpide ekonomikoa higatu du; azken prozesu horren argitan ulertzen da, **arrazionalizazio** ideologikoak gorabehera, 1970eko hamarraldiaren amaieran abian jarri ziren desarautzeen uholdea. Koro Navarro

Valéryren ezkortasuna eta Gibbonen baikortasuna biak dira emozioen **arrazionalizazioak**, gaingiroki egokiak beren bizitzen denbora-tarte laburretarako. Iñaki Mendiguren

---

arrazionalki *adlg* modu arrazionalean.

Ingelesek aberatsen etxeetan hartu zuten ostatu, alemanen tokian; eta berauek, herrian dexente denbora egon zirenez, seguru aski **arrazionalki** garbituko zituzten aberatsen etxeetako gauzarik onenak. Koldo Biguri

Hura guztia - **arrazionalki** begiratuta- argi, ulergarri eta nabarmena zitzaidan, eta ni ere bere iritzi berekoa nintzen, bere azken oharraren arabera gutxienez. Urtzi Urrutikoetxea

Amaz **arrazionalki** hitz egin beharko banu, primerako emakumea dela esango nuke: elegantea, azkarra, sen handikoa... Ana Urkiza

Ingelesek aberatsen etxeetan hartu zuten ostatu, alemanen tokian; eta berauek, herrian dexente denbora egon zirenez, seguru aski **arrazionalki** garbituko zituzten aberatsen etxeetako gauzarik onenak. Koldo Biguri

---

arrazionaltasun *iz* arrazionala denaren nolakotasuna. ik **arrazoizkotasun**; **arrazionalitate**.

Pausoa emateko prest, misterio bikoitza dutelarik aurrean: ezagutzaren misterioa, batetik; munduaren **arrazionaltasunaren** misterioa, logosa bestetik, "dena berak eta bere baitan sortua izan zen" Felipe Juaristi

Hori guztia **arrazionaltasunaren** kontrako iraina zen. Edurne Elizondo

Ibilbide horretan bi mutur daude, arte kritikariak erantsi zuenez: **arrazionaltasuna** eta magia. Berria - Euskal Herria

Arrazionaltasunak galarazten ditu gizakiak, horra nik esan. Joxan Elosegi

Arrazionaltasunaz trufatzen den azalkeriaren despotismo ez ilustratua. Jose Angel Irigaray

Positibotasunek ez dituzte ezaugarritzen ezagutzeko erak -bai a priorizko eta beharrezko baldintzak badira, bai historiak txandaka lanean jarri ahal izan diren **arrazionaltasun** erak badira-. Xabier Arregi

Hobbes, itxuraz, geroago indarrean jarriko zen noziotik urruti dago, alegia, demokrazia **arrazionaltasunaren** bertuterik nagusiena dela sinesten zuen ideia moderno hartatik. Esteban Antxustegi

---

arrazionamendu ik **errazionamendu**.

---

arrazionatu ik **errazionatu**.

---

arrazismo 1 *iz* arraza bat besteak baino hobea dela eta besteak menderatzeko eskubidea duela dioen ideologia.

Gerrari, **arrazismoari** eta neoliberalismoari aurre egitea eta herrien eskubideak aldarrikatzea da ekimenaren asmoa. Berria - Mundua

Hainbeste unibertsitario kritiko eta progre dabilen Espainietan, **arrazismo** espainolak (Ortega, Sánchez Albornoz, etc.) ikerketatxoren bat ez ote du merezi? Joxe Azurmendi

Belaunaldi berria Aranaren **arrazismoaren** aurka zegoen, hizkuntza eta kulturarenganako desinteresa ulertezina zitzaion. Joseba Zulaika

Nazismoa gogoraraztzen du Schultzek: **arrazismoa**, gizon-emakume ahulak akabatu nahia, agintari klase berria boterera. Karlos Zabala

Errealitate "handiaren" aurrean, hau da, gerren, torturen, indarkeriaren, multinazionalen, **arrazismoaren**, industrialismoaren, gorputzaren hipersakralizazioaren, materialismoaren, antiekologismoaren eta horien guztien aurrean, idazlearen ahotsak ezer gutxi lor dezake. Ana Urkiza

Matxismotik apur bat eta **arrazismo** txorrotadatxoa. Urtzi Urrutikoeetxea

Gero, **arrazismoa** esaten da, horra hor, juduen kontrako gorrotoaren arrazoirik zaharren eta sanoenetakoa. Patziku Perurena

2 *arrazismo zientifiko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Jakina, espainiartasuna arraza berezi batekin lotzeak **arrazismo zientifikoak** bezain oinarri barre/negargarriak zituen. ETC-prentsa

Juduak utzirik, bada, eta **arrazismo "zientifikora**" mugatuz, Das Kapital-en arraza faktore ekonomiko bezala kontatzen da. ETC-literatura, saiakera

Arrazismo zientifikoaren gainbehera ez zen ordea Grant eta bere bultzatzaileen kanporatzearekin bukatu, azken hauek defendatzen zuten poligenismoak (arrazen giza-jatorri ezberdina) bide luzea izango baitzuen. ETC-entziklopedia

3 *arrazismoaren aurkako*

Iaz ere polemika sortu zuen afixa batek Frantzian, **arrazismoaren aurkako** elkarte katoliko batek auzitara jo baitzuen Costa-Gravasen Amen filmeko afixaren aurka. Berria - Kultura

Arrazismoaren aurkako jardunotan aurkitzen dira Unamuno-ren testurik ederrenetakoak -geografia, arraza eta enparauak oro bazterturik- hizkuntzaren gorazarrez, herri baten izpiritu eta arima bezala, edo pentsaera baten sustrai bezala. Joxe Azurmendi

4 *arrazismoaren kontrako* *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi)*

Antirrazismoa, antiarrazakeria edo **arrazismoaren kontrakoa**, arrazakeriaren aurka egiteko hartutako edo garatutako sinesmen, mugimendu eta politika da. ETC-entziklopedia

Patricia Hill Collinsek, hari berean, dio feminismoan edo **arrazismoaren kontrako** edo langileen aldeko mugimenduetan emakume beltzak outsiders insiders (kanpotar barnetar) sentitu izan direla sarritan. ETC-literatura, saiakera

Nola liteke **arrazismoaren kontrako** txosten batean, NBEren arrazismoaren aldeko adierazpen ikaragarriak egotea? ETC-prentsa

Immigrazio zuzendariak horrez gain **arrazismoaren kontrako** manifestu bat prestatuko duela agindu du. ETC-prentsa

Bertako gizarte mugimenduetan sindikatuak, **arrazismoaren kontrakoak**, inguramenaren aldekoak, hizkuntza minorizatuak suspertzeko lanetan ari direnak eta alderdi politiko abertzaleetan aritzen diren aktibistak elkarrizketatzera. ETC-prentsa

Arrazismoaren kontrako mugimenduek bortizki salatzen dute Gobernuaren obsesioa. ETC-prentsa

Atzo, Londresen, **arrazismoaren kontrako** liderraren 90. urtebetetzea ospatu zuten, nola ez, artista ospetsuz jositako kontzertu batekin. ETC-prentsa

Arrazismoaren Kontrako Astea dela-eta egindako hausnarketetan hori azaltzen da. ETC-prentsa

Sexismoaren aurkako mugimenduarekin gertatzen den bezala, **arrazismoaren kontrakoa** ere, alde horretatik, ez da inoiz bukatzen. ETC-prentsa

Hiru omen dira gazte italiarrek postalotan erabili dituzten argumentuak gazte frantsesak animatzeko: orain arteko lorpen sozialak, solidaritatea eta **arrazismoaren kontrako** lehia. ETC-prentsa

Martxoaren 21a **arrazismoaren kontrako** nazioarteko eguna denez, Hamaika Kolore taldekoak etorri zitzaizkidan, eta, haien bidez, Jaurlaritza ere sartu da tartean, eta Jaurlaritzaren hainbat kilometro kudeatu ditut. ETC-prentsa

Obra "tradizional" bat aukeratzen denean, hobe da casting ez-tradizional bat egitea; horrek edonori ematen dizkio aukerak, eta aldi berean **arrazismoaren kontrako** aldarrikapen indartsua da. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *ingurumen arrazismo* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Bankuak azken 500 urteetan eta AEBetako sorreratik jasan dugun zapalkuntza berresten ari dira proiektu horien finantziazioarekin: **ingurumen arrazismoa** bultzatzen dute banku horiek, gure lur sakratuen suntsipena finantzatzen ari baitira. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 1 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arrazismo abertzalearen seinaletzat** (1); **arrazismo arazorik ez** (1); **arrazismo biologikoa** (1); **arrazismo biologikotik libratu** (1); **arrazismo edo mestizajean** (1); **arrazismo espainolak** (1); **arrazismo eta antisemitismoaren** (1); **arrazismo nazistaren aurkaria** (1); **arrazismo nazistaren porrotarekin** (1); **arrazismo politikoa** (1); **arrazismo txorrotadatxoa** (1); **arrazismo xuri hau** (1); **egiazko arrazismo** (1)
>
> **arrazismoaz egin** (1); **arrazismoaz mintzatzeko** (1)
>
> **arrazismotik ihesi** (1)

arrazista 1 *izond* arrazismoak eragina; arrazismoari dagokiona.

1939an Ameriketara joan zen lege **arrazisten** kontrako protesta gisara. Fernando Rey

Planteiamendu **arrazista** edo ez dakit zer iruditu zitzaion. Xabier Mendiguren Elizegi

Europak urtetan immigrazioa eragotzi du, arrazoi **arrazistengatik**, eta orain bere kanpoko mugetan jendea hiltzen uzten du, laguntza erakundeak kriminalizatzeaz gain. Berria - Mundua

Eraso **arrazisten** biktimak, hamarretik zazpi, juduak dira, Giza Eskubideen batzordearen arabera, irakurtzen ahal da Le Monde-n 2004ko uztailaren 13an. Iñigo Aranbarri

2 *iz/izond* pertsonez mintzatuz, arrazismoaren aldekoa, bere jokabideetan arrazismoa erakusten duena.

Arrazista samarra, gure balizko irakurle erretxin hau, baina, bego horretan; utzi ditzagun hizkuntzari buruzko itzulinguruak eta gatozen gure gaira, Borgesen testuetan aurkitzen den kausalitatera. Bernardo Atxaga

Marian Elziondok (54 urte) argi dauka euskal herritarrak ere **arrazistak** direla. Berria - Euskal Herria

Elkarrizketatuetako batek, Isham Rashafik, hitz bortitzak botako ditu errefuxiatuen inguruan: "Ni ez naiz **arrazista**, kontuz". Iban Zaldua

Jennyk, berriz, **arrazista** zela eta bihotz gogorra zuela esaten zuen. Gotzon Garate

Ortega bezala, eta Unamuno ez, Baroja **arrazista** da. Joxe Azurmendi

Batzuetan eskuindar mozorrotuak besterik ez dira; beste batzuetan, dakitela ala jakin gabe, **arrazistak** edo xenofoboak; bestetan, txoro-jendea. Bernardo Atxaga

3 ***skin arrazista*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Lehenek jarrera ideologiko antikapitalista argia defendatzen duten bitartean, bigarrenek antifaxismoa eta antirrazismoa azpimarratzen dute. Bestetik, **skin arrazista** edo neonaziak daude. Skin antifaxisten ustez, azken horiek ez dira skinheadak. ETC-entziklopedia

4 ***skinhead arrazista*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Maiz beste taldeetan ere sailkatzen dira: Ku Klux Klan, Neokonfederatuak, **Skinhead Arrazistak**, edota Kristau Nortasuna taldeetan. ETC-prentsa

Combo (Stephen Graham) antzezten duen aktoreak **skinhead arrazistaren** papera egiten du. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

arrazista bultzatzeagatik kondenatu (3); **arrazista da** (3); **arrazista eta diskriminatzaile** (2); **arrazista eta xenofoboa** (2); **arrazista izan** (4); **arrazista nabarmena** (2); **arrazista samarra** (2); **auzitegiek gorroto arrazista** (2); **eraso arrazista** (2); **ez arrazista** (4); **ez da arrazista** (2); **gorroto arrazista** (4); **gorroto arrazista bultzatzeagatik** (4); **ideologia arrazista** (5); **izan arrazista** (2); **jarrera arrazista** (3); **joera arrazista nabarmena** (2); **kriminal eta arrazista** (2); **neurria arrazista** (2); **terminologia arrazista** (2)

adierazpen arrazistak (2); **arrazistak izan** (3); **oihu arrazistak** (2)

arrazistatzat jo (7); **arrazistatzat jotako** (2)

---

arrazoi *(orobat **arrazoin** g.er.)* **1** *iz* zerbaiten zergatia azaltzen duen edo zerbait bidezko egiten duen zera; zerbait frogatzeko argudioa; adimena.

Beste hainbeste enigma, beste hainbeste **arrazoi** aitzina egiteko. Koldo Izagirre

Nik ere ez nuen nahi, **arrazoi** berberengatik. Juan Kruz Igerabide

Ba ote, horretan, inor bere onetik ateraraziteko **arrazoirik**? Mirentxu Larrañaga

Ez zen, behintzat, **arrazoi** bakarra izango. Anjel Lertxundi

Neronek ikusia da, Damaskon: gau-jagole batek oinezko baketsu bati inongo **arrazoirik** gabe sabelean eman zion ostikoarekin, gizagaixoa ospitalera eraman behar izan zuten airean. Anton Garikano

Hala uste izateko beste **arrazoi** bat ere badago, ostera. Edorta Jimenez

Azken **arrazoi** bat, garrantzitsuena edo berdin, nihaurek ez baitakit, deus balio ez duena, menturaz ondorio izpirik gabe egonen dena: haurtzaroko fedeari esku emaitea berriz. Piarres Aintziart

Zure semea zerura joaten bada, andre maitea, harro egon zaitezke, eta ez dago negar egiteko **arrazoirik**, kontrakoa baizik. Harkaitz Cano

Gauean **arrazoiak** lo egiten du, eta gauzak, izan, dira soilik. Josu Zabaleta

Teresak amorante gazteak askozaz sutsuagoak direla esaten zuen, eta agian **arrazoi** guztia izango du, baina guztiak horren petralak baldin badira, kostako zait nik baino 20 urte gutxiago dituen mutil batekin partekatzea logela eta armairua. Jasone Osoro

Bada oinarrizko **arrazoi** bat, Frantziskoren erakargarritasuna azaltzen duena: Frantziskok inor gutxik bezala ulertu zuen eta bizipen bihurtu Ebanjelioaren muina. Askoren artean

Agian hori izan zen **arrazoia** artean deus aipatu ez izateko hartaz, Erkiziak aurrea hartua zigun hitzetan. Koldo Izagirre

Milaka milioitako aurrekontua duen proiektua onartu dute interes ekonomikoak ezkutatzen dituzten bestelako **arrazoien** aitzakiarekin; horren guztiaren atzean lurren gaineko interesak eta enpresa eraikitzaileen kontratuak daude". Edurne Elizondo

Etxera bisitan joan nintzaionean ere - ospitalean egin zuen denboraldi guztian ezin izan nuen bisitatu, **arrazoi** lehenik poliziarenak eta gero medikoak zirela medio -, kaputxa hura jantzita aurkitu nuen Gabin. Iñaki Iñurrieta

Badaukat beste **arrazoi** bat lur jota egoteko: seme bat izan nuen emazte gorrotagarri horrekin, seme eskerbako bat, aspaldi hiriburura estudiatzera joan eta etxera inoiz ere etortzen ez dena. Jon Arretxe

Beti izaten da **arrazoiren** bat eta. Patxi Iturritegi

-Nik denak astintzen ditinat - erantzuten zuen Martinek, hori **arrazoi** bat balitz bezala. Koro Navarro

Alabaina, Alexandra David-Néel eta beste hainbat abenturazaleren gisara, akaberan, **arrazoiaz** harago, bere baitaren baitan itsarotzeko eta abiatzeko deia sentitzen du bizi-bizi... Patxi Zubizarreta

Eta ez luke **arrazoi** gutxi izango erantzun hori ematen duenak. Josu Zabaleta

Bikoiztasun hori argitzeko orduan (aldi berean bi izenak erabiliz jarraitu zuen lanean) kritikariek **arrazoi** desberdinak aipatu dituzte. Joxean Agirre

Inork ez zuen ezer esan, guztiek **arrazoia** zein zen jakinda ere. Xabier Olarra

Arrazoi bila ari dira guztiak. Karlos Linazasoro

Ez dirudi Istanbulen beldurra sentitzeko **arrazoirik** dagoenik. Jon Arretxe

Horixe zen gure arrazoibidea, eta, une hartan iritzi alienatua eta okerra izan arren, oraingo perspektiba historikoarekin, langabezia eta miseria sortu eta gero, ezin esan **arrazoia** falta zitzaigunik. Xabier Mendiguren Elizegi

Herrialde zilarraz amorostua nintzen baiki, baina ez zen **arrazoi** bat, Basabürüatik Pettarraren hondar limeseraino honetan debalde zein umore gaitzez kurri eta kurrinka ibiltzeko. Itxaro Borda

Horren **arrazoiaz** eta helburuaz behin baino gehiagotan hitz egin diagu, Onan. Aitor Arana

Zer axola! erantzungo du norbaitek, eta ez diogu deblauki **arrazoirik** kenduko. Iñaki Arranz

Poz eta betekada asko jaso ditut nire bizitzan, eta, zalantza izpirik gabe, **arrazoi** eta hitz horiek denak entzundako unea ez dut berehalakoan ahaztuko. Pello Zabala

Izututa egoteko besteok baino **arrazoi** gehiago izango ote zituen galdetu nion neure buruari. Joseba Urteaga

Hori izan zen Sobiet Batasunean argitaratua ez izateko **arrazoia**. Felipe Juaristi

Harrezkero ere izan genuen beldurtzeko **arrazoi** bat baino gehiago. Patxi Zubizarreta

Hori zen **arrazoietako** bat, nahiz ez bakarra, eta ez menturaz garrantzizkoena, aspaldiko kontua baldin bada ere. Pello Salaburu

-Balizko bi **arrazoi** daude, baina ez dakit zein den benetakoa. Agustin Otsoa

Egutegia egokitzeko orduan, udaberriaren hasiera edo gertuari ez baino, liturgiaren aldetiko **arrazoiak** hartu zituzten kontuan. Pello Zabala

Zakurrak **arrazoi** hauengatik oldar litezke. Gotzon Garate

Paraje hura ongi ezagutzen nuen zenbait **arrazoi** zirela-eta. Txillardegi

Ez esan, bestalde, ez nauzula ezagutzen, ez dudala inolako **arrazoirik** zu garbitzeko. Javi Cillero

Baina gure idazleak ez bide du arrazoizko jabegorik bilatzen (zer **arrazoi** darabil poetak?), ezta ipurgarbitzaileen segizio bat ere. Patziku Perurena

Arbelbidek berak beste **arrazoi** bat ematen du misionestetan sartze horretaz. Xipri Arbelbide

Nafarroak aro nahasia bizi zuen eta pentsatzekoa da Joanesek, bastart istorioetan sartu gabe, aski lan zuela erresumako Gorteak bere **arrazoietara** ekartzen, beaumondarren konspirazioak desegiten eta Gaztelaren eta Frantziaren hortz gosetiei itzurtzen. Aingeru Epaltza

Bestea, benetako **arrazoiak** dakizkien ahoa, mutu dago beti. Joxerra Garzia

Bertan, Euskal Iraultzaren gune nagusia "baserria" zela esaten zuen, eta bi **arrazoi** ematen zituen: alderdi etno-linguis-tikoa eta gerrilla mendian egin beharra zegoela. Rafa Egiguren

Arrazoi osoa. Iban Zaldua

Banekien banuela **arrazoi** bat izen arrotz hori atsegin ez izateko. Antton Olano

Ez dute beren porrotaren **arrazoia** ulertzen, ordea. Txema Ramirez de la Piscina

2 (izenondoekin)

Helegitearen atzean "**arrazoi** politikoak" daudela dio Iztuetak. Berria - Euskal Herria

Harro izateko **arrazoi** on bat bederen ematen zigun. Itxaro Borda

Ez al dakizue aingeruak ere epaituko ditugula? Bada, **arrazoi** handiagoz eguneroko gorabeherak. Elizen arteko biblia

Literaturan, eta bereziki poesian, arrakastaren osagaiak oso sinpleak dira, eta bikain adieraziak Aita Gassalasca Japeren bertso honetan; **arrazoi** misteriotsuren batengatik "John A. Joyce" izenburua du. Xabier Olarra

Bankuarekiko lotura sortu bai; ez, ordea, pertsona jakin batekikoa; **arrazoi** xinple batengatik: pertsona horrek beste norabait joateko eskaintza izan dezake, eta alde egiten duenean, bezeroak berekin eramaten ditu. Xabier Olarra

Mehatxu fisiko beldurgarri guztiak goitik behera erori ondoren, "**arrazoi** psikologikoetara" jotzen dute, eta hor dena kabitzen da. Luis Elberdin

2.04 Kulturan ez dago **arrazoi** gorririk, **arrazoi** biluzirik. Iñaki Segurola

Estatu moderatuetan - gehitzen du - aberriaren maitasuna, lotsa edo gaitzespenaren beldurra dira **arrazoi** nagusiak, delitu asko saihets dezaketenak. Juan Martin Elexpuru

Atzera itzuli eta hari eskatzea ezinezkoa zen **arrazoi** zehatzik eman gabe; bestalde, urteak ziren une hura zurekin pasatzeko irrikitan nengoela, eta ez nuen galdu nahi. Eduardo Matauko

Zergatia galdetzen zidatenei, bada, Galizian gaita festarako deia dela eta nik ere jendearen arreta neureganatzeko jotzen nuela eta halako **arrazoi** txepelekin erantzuten nien, Iraketik etorritako gerra albiste batek erantzuna eman zidan arte. Pako Aristi

Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritzak **arrazoi** sendoak zituen izenaz jabetzeko. Iñigo Aranbarri

-Ez dut esan nahi ez naizela pozten zu ezagutzeaz -erantsi zuen Harryk bizkor-; baina, zera, badago **arrazoi** berezirik zu hemen egoteko? Iñaki Mendiguren

Druida Nagusia, azkenean, **arrazoi** latz bat botatzen ausartu zen. Joanes Urkixo

Esan dezadan, bide batez, EHUrentzat euskaraz gero eta gai gehiago ematea ona dela, beste **arrazoi** argi batengatik: nafar ikasle euskaldunak erakartzen ditugu hola. Pello Salaburu

Badira zenbait aste zure alabak niganako begirunea galdu zuela, eta **arrazoi** onak izan zituen horretarako. Oskar Arana

Eta aurrerantzean hori izanen da politika urtegiak egiten direnean, segurtasunagatik, estetikagatik, bai eta **arrazoi** sentimentalengatik ere. Edurne Elizondo

Erabaki hori hartzeko, izango zuen **arrazoi** handi bat, seguru asko. Gotzon Garate

Ni bakarrik joaten nintzen, haien suhiaren axolagabetasunaren benetako arrazoiak ezkutatuz, **arrazoi** adieraztezinak baitziren, bai haren eta bion artean ere, eta nik onartuak azalpenik gabe. Joseba Urteaga

Bigarrena hautatu nuen, oso **arrazoi** xinpleagatik: neuretarrekin gelditzea zen, neure herrian. Agurtzane Juanena

Indiako atzeratasuna azaltzeko, lau **arrazoi** nagusi ematen dituzte ekonomistek: bata, biztanleriaren haztea. Gotzon Garate

Obaba izena bera **arrazoi** jakin bategatik aukeratua dago. Bernardo Atxaga

Baina, nonbait, beste zio batek bultzatu zuen hori egitera, **arrazoi** larriago batek, eginkizun ganorazkoago eta garrantzi handiagoko batek... Jose Morales

Izan ere, kobratzaileak hartuak zituen, ezarritako mugaren gainetik, zenbait erregutzaile, **arrazoi** taxuzkorik gabe eta onginahi gehiegizko batek eraginik. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta ez du **arrazoi** faltarik nire adiskideak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aita Zavalak ez du **arrazoi** faltarik Etxegarairen pasarte hori bertsolaritzaren kontrako "anatema"tzat jotzean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Albo-**arrazoi** batzuk aipatu nahi ditut, hala ere, zuribide bainoago, bazterketarik nabarmenenetarako erabili den irizpidearen argibidetzat: Juan Garzia

Segurtasun **arrazoiengatik** umeentzako jaka bakero bat merkatutik atera dutela dio bertan: egindako test batzuen arabera botoiak errazegi askatzen omen zaizkio, umeak hura irentsi eta itotzeko arriskuan jarriz. Pako Aristi

5 ***arrazoi bikoitz***

Patxi Izko presidenteak argi esan du aste honetan, ordea: "UEFA behar bezala ez dugu ospatu eta egingo dugu, baina ospakizunetarako **arrazoi bikoitza** izatea nahiko nuke, finala irabaztea nahi dut». Berria - Harian

Lopezek, gainera, pozik eta harro egoteko **arrazoi bikoitza** du, garaikurra irabazteaz gain, torneoko jokalari onena izendatu baitzuten bere postuan, libero postuan. Berria - Kirola

6 ***arrazoi eman***

Berak, bakarrik zeudenean noski, **arrazoi ematen** zien gauza batzuetan, Amiano haserretu egiten zitzaion arren. Ramon Saizarbitoria

Haien arteko eztabaida oso lasaia izan zen, eta **arrazoi eman** zion Ali Beyren baieztapenari: "arabiarrek adeitasun handiz tratatzen dute elkar zeinahi egoeratan". Bernardo Atxaga

Ez didate sekula haginik atera, baina batek izaten ditu bere irudipenak, eta probatutakoek **arrazoi eman** diote nere irudipenari: alegia, haginaren pare dela guretzat maitea edo maita-laguna. Iñaki Segurola

Orduan nahi baitzuen Angeluk Lemoine zinemako enpresa buruari eman eraiki baimena indar gabetu, baina jujeek Angeluri **arrazoi eman** zioten osoki. Herria

Aurten ikusitakoa aintzat hartuta, **arrazoi eman** beharko italiarrari. Berria - Kirola

Hilabete geroago, Imanol Larzabal kantariaren emanaldiaren ondoren, bafleentzako bi kutxa handi horietan ondo kizkurtuta sartu zirenean, zuzendariari **arrazoi ematen** ari zitzaizkion Pikabea eta Sarrionandia. Berria - Harian

Aski dun, demontrea! - Zaldiek irrintzi egin zuten, aitari **arrazoi eman** nahi baliote bezala. Anjel Lertxundi

Andereñoak **arrazoi eman** die. Joxerra Garzia

Eta bitxiki, nehoiz ez bezala, **arrazoi ematen** zion. Itxaro Borda

Espero zitekeen erantzuna "Bai, hau Espainia da", edo horrelako zerbait izango zen noski, baina, zorionez, idazle anonimoak **arrazoi ematen** dio lehen idatzia egin zuenari, zera baitio haren idatziak: "Ez, noski, hau zutabe bat da". Joxerra Garzia

7 ***arrazoi gaizto***

Egia horiek soil-soilik ez adituarena egiteko interesa dutenek uka ditzakete; zeren eta, zitalduak baitira dagoeneko, liluraldi bat sortzea igurikatzen baitute, beren jokabide gaiztoa **arrazoi gaiztoz** justifikatzen saiatuz. Jon Muñoz

8 ***arrazoi izan*** du *ad*

Gero **arrazoi duzu** : ipuin horren gai nagusietakoa distantzia da eta, distantziagatik, maitasun harremanen ezinarena. Berria - Kultura

Ba, bai, **arrazoi zuen** adiskideak. Berria - Kirola

Arrazoi zuen Joanesek: mintzatzeko gaitasuna ehortzi zidatelako, ez nintzen benetako militantea izaten ahal. Itxaro Borda

Izugarri gogorra da izokin mota hori eta **arrazoi du** Joaquinek, urak apur bat kutsatu eta zikindu arren, gogor eutsiko dio arrain horrek ibaian eta postal turistikoetan. Hasier Etxeberria

Erkiziak **arrazoi zuen** , ez zen aski protestatzea, baina sarda senak ekartzen zigun egia haietarik ateratzen zituen ondorioak ez zirela legezkoak, umeak zanpatzen eta bortxatzen zituzten munstroen larruak ziren sotanak, hori uste genuen guk, frogatua geneukan. Koldo Izagirre

-Arrazoi duzu , goazen! Migel Angel Mintegi

Baina Salomonek **arrazoi zuen** : ez dago bigarren aukerarik, ez gutako gehienentzat. Julen Gabiria

-Muchacha-k **arrazoi du** , jauna. Koldo Izagirre

Aitzitik, berak uste du **arrazoi duela** beharbada Zoroastrok, txakurraren adimenari esker dirauela agian munduak. Imanol Zurutuza

Agian **arrazoi zuen** ni arrotz bat bezala tratatzerakoan. Iban Zaldua

Jaunak **arrazoi du** ; ni eta nire herria, berriz, oker gabiltza. Jose Antonio Mujika

-Arrazoi duk , baina bakarrik ibili nahi diat gaurtik aurrera; ezkutari bat besterik ez diat behar. Juan Kruz Igerabide

9 ***arrazoi osoa eduki***

Arrazoi osoa daukazu , diziplina bidez baitatorkigu zientzia edota berak bakarrik pizten baitu gure baitan jakingura; ez du inork ere jakintzarik bereganatzen, diziplinaren bitartez ez bada. Imanol Unzurrunzaga

"Bere aurpegiari irribarrerik ez darion gizonak, ez dezala dendarik zabal", eta baietz pentsatu nuen, **arrazoi osoa zeukala** atsotitz txinatar horrek: hain zen kutsakorra gazte hari zerion irribarrea! Josetxo Azkona

-Halaxe da, bai, **arrazoi osoa daukazu** , eta gogo onez onartuko dut jartzen didazun zigorra, edozein dela ere. Joxerra Garzia

10 ***arrazoi osoa izan***

Harryk **arrazoi osoa izan** zuen pentsatzean hobe zela harekin arazorik ez izatea. Iñaki Mendiguren

11 ***arrazoi txar***

Soil-soilki zure bihotza neurriz gain ari da zure adimenaz baliatzen, eta **arrazoi txarrak** erranarazten dizkio: ni ordea, arras axolatua bainaiz nire burua ez tronpatzera, ez naiz hain kontentaerraza. Jon Muñoz

Ez da **arrazoi txarra** madarikazioak eta biraoak botatzen hasteko. Karlos Zabala

- Ez dok **arrazoi txarra** ! Unai Iturriaga

12 ***arrazoia eduki*** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***arrazoia izan*** *agertzen da)*

- Bai, horretan behintzat **arrazoia daukak** . Juan Luis Zabala

Arrazoia zeukan presoak. Iban Zaldua

Eta bazitekeela, pentsatu zenuen, bazitekeela, bi gizonezkoren arteko bizimoduak eragindako txinpartak baino harago, Leonek **arrazoia edukitzea** eta zu benetan ezindua izatea. Hasier Etxeberria

Eta eduki ere, **arrazoia dauka** : Karmelo eta Ruben oso atseginak zaizkit. Patxi Zubizarreta

Ez zen erraza onartzea, baina Cesar Telleriak **arrazoia zeukan** orduan. Harkaitz Cano

Denboraren joanak erakutsi du zenbaterainoko **arrazoia zeukan** uste hori zuenak. Andoni Egaña

Arrazoia dauka amak: erregeak, bere luxu, aberastasun eta sofistikazio guztiarekin, ez du bere bizitzan amuarrain hauek bezalakorik jan. Pako Aristi

Nola pentsatzen du lortzea Euskal Herrian Euskarazek, gure ordezkari politiko gehienak euskararen etsai amorratuak omen direnean? Ez da nahikoa, ustez, **arrazoia edukitzea** , norberaren ideiak aurrera ateratzeko. Berria - Euskal Herria

Aitzitik, ziur gaude gai batean **arrazoia daukagula** : oker dago Jaurlaritza eta bere jarrera aldatu behar du, eztabaidak amaituko badira eta ituna egingo badugu. Berria - Ekonomia

Hitz gehiegi gastatu dut poesiaren defentsan, bai, eta **arrazoia daukazue** , irakasleok ez genuke irakaskuntza sistemak ematen digun eskubideaz abusatu behar. Pako Aristi

Rochefortek **arrazoia zeukan** menturaz, munduko maluratuek zientzia barri bat ikasi behar zuten, baina gerezien sasoia ez zen jakite hutsaz helduko. Koldo Izagirre

Arrazoia zeukan Chèvenementek, karrera ederra baitzeukan lehendik ere Bonnetek, batez ere Iparraldeko Katalunian prefeta izan zenean egindakoa. Hasier Etxeberria

Mundua, bizitza, dena eraman errazagoa litzateke, okerrerako aukerarik gabe, gertakizun guztien arrazoiak eta gure jardutea gidatzeko oinarriak emango lizkigukeen **Arrazoia bageneuka** . Askoren artean

Ea jabetu ote nintzen orduan zenbaterainoko **arrazoia neukan** , berak atzera. Joxe Austin Arrieta

13 ***arrazoia eman***

Nik **arrazoia ematen** nion. Juan Garzia

-Bai - **arrazoia eman** zidan Taniak. Jon Muñoz

Zorotzakoak, berriz, duintasun handiz zeraman jendearen adarjotzea, bai baitzekien denborak **arrazoia emango** ziola. Joxerra Garzia

'Cannabisa eta nerabeak: Gurasoentzako gida', dio izenburuak, eta ni ez nerabe eta ez guraso ez naizen arren, eta erreportaia aldizkari tonto batean datorrela esango lidakeenari **arrazoia eman** beharko niokeelarik ere, 'cannabis' hitzak erakarrita irakurtzen hasi naiz. Pako Aristi

Mariori beti dotorea iruditu zitzaion Paola, goretsi egiten zituen beti haren soinekoak, haren gustua; eta, bietatik, Paola zen gehienetan iritziak ematen zituena, eta Mario, **arrazoia ematen** ziona. Fernando Rey

Hitz batean esanda, han zegoen diktaduraren gorrotoa **arrazoia ematen** 60ko hamarkada bukaerako panfletoren batek zioenari: "Euskaldun guztiak ez dira Francoren aurka borrokatu, baina Franco euskaldun guztien aurka borrokatu da". Bernardo Atxaga

UGT, CCOO eta CENek justiziak "beste behin, **arrazoia eman** » diela esan zuten, komunikabideei igorritako prentsa oharrean, atzo. Berria - Ekonomia

Ikerketa geoteknikoek **arrazoia eman** diote Eduardo Txillidari: Tindaya mendiak eutsi egingo lioke eskultoreak amestu zuen huts erraldoiari. Berria - Kultura

Manuelek **arrazoia ematen** zion emakumeari, baina Rojas hiltzea Jainkoa bera hiltzea bezalakoa zen, infernua seguru. Aritz Gorrotxategi

Lapurretak ere **arrazoia ematen** zion Gelatxori. Bere talentua besteen grina, irrika eta bekaitza pizteko adinakoa bazen, ez zen talentu makala, ez zen talentu koxkorra. Pako Aristi

Agian ez ziren aski arrazoi Angelo Mussoliniren edo auskalo zeren kontrako konspiratzailea zela esateko, baina uste osoa nuen denborak **arrazoia emango** ziola senak esaten zidanari. Anjel Lertxundi

Kontra jokarazten zidan objektu haien gaineko artatze maniakoak eta **arrazoia ematen** nien horrenbestez gurasoei, neuk horrelakorik nahi ez banuen ere. Joxan Elosegi

Trenkatua da eta epaileek Hazparneko Herriari **arrazoia eman** dute. Herria

Izan ere, guk salaketa jarri ondoren, Irungo Auzitegiko epaileak **arrazoia eman** zigun; hau da, kontrola egin zigutenak gu engainatzen saiatu zirela adierazi zuen. Berria - Kirola

Eta, orduan, begiak zorroztu, muturra luzatu eta izugarri gogortzen hasten da giroa, harik eta nik **arrazoia ematen** diodan arte. Lander Garro

14 ***arrazoia izan*** du *ad*

Eta bidezko da, zeren, gizakiek euren nahigabeen amai ziurrik ikusiko balute, nolabaiteko **arrazoia bailukete** erlijioei eta aztien mehatxuei aurre egiteko. Xabier Amuriza

- **Arrazoia nuen** ! - Iñake, erdi histeriko. Xabier Mendiguren Elizegi

Beraz, **arrazoia dugu** . Joxerra Garzia

Arrazoia dute zaharrek: telebistari begira hazitako belaunaldiak elkarri harriturik eta mesfidantza trazako aurpegiekin begiratzen dioten giza saldoak besterik ez dira. Pako

Aristi

-Arrazoia duzu ; ez joan. Eskarne Mujika

Cogito, edo **arrazoia dut** existentziaren tenplu. Anjel Lertxundi

Li bitaines zi ba bou bour li zafas" (frantsesez: **Arrazoia duzu** Luisa, putak ez dira haurrentzako onak). Pablo Sastre

Arrazoia izan nahi zuen gizona. Berria - Kultura

- **Arrazoia duk** , aurpegi xifrituak, kezkatuak eskaintzen zizkigutek beti: ez dituk mintzatzen ahal gauza triste eta hits bat aipatu gabe. Itxaro Borda

-Beharbada **arrazoia duzu** , nik ez dut hilezkorra izan nahi - aitortu zion Miriamek dantzariari. Aritz Gorrotxategi

Arrazoia duela kontu honek esan behar da, aurreko bero-punta erpin horiek ikusita. Pello Zabala

-Aitak **arrazoia zuen** . Anjel Lertxundi

Eta **arrazoia dut** ! Garrantzirik batere ez du, gainera, honek guztiak. Josu Zabaleta

Honek zerikusirik ez du hizkuntza bat eranskaria edo malgukaria izatearekin, baina Unamuno-k beti esplizitatzen duen **arrazoia hau** da. Joxe Azurmendi

Baina Carlosek **arrazoia zuela** onartu zuen. Bego Montorio

Arrazoia dute talde zuri-gorriko ordezkariek, hurrengo jardunaldietan aurkari izango dituzten taldeak ez baitira irabazten errazak izango. Berria - Kirola

Hala ere, azken batean, **arrazoia dutela** iruditzen zait. Berria - Gaiak

15 *arrazoiak arrazoi*

Arrazoiak arrazoi , hornidura energetikoa ziurtatzeko pausoak azkartu dituzte azkenaldian munduko herrialde boteretsuenek. Berria - Ekonomia

Gure ustez, beste hainbestekoa gertatzen da, **arrazoiak arrazoi** , teoria oralista bertsolaritzaren ikerketarako tresna bakar gisa erabili nahi denean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Arrazoiak arrazoi , Hegoaldeko erakundeak propaganda armatuaren alorreko asmo eta esperientziak azaldu zituen; ez zen inor aurka atera. Rafa Egiguren

Arrazoiak arrazoi , nerabe baten amets erromantikoa zen hura, neure egiazko izaerarekin zerikusi handirik ez zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Arrazoiak arrazoi , baina, sortaldean dago mendebaleko euskararen indarra, Lea-Artibai eskualdean, Busturialdean, Durangaldean eta Deba arroan. Koldo Zuazo

Bigarrenik, **arrazoiak arrazoi** , bazterrean kokatu dutela euren burua; eta hirugarrenik, sakonean badagoela min bat, urteetan isildu dena, eta mikrofonoa pizterakoan azaleratu dena. Ana Urkiza

16 *estatu arrazoi*

Ministroak **Estatu arrazoia** zaindu behar du. Jon Alonso

Tellerrek, eta Tellerren moduan askok, **Estatu-arrazoia** dute errege. Fernando Morillo

Estatu arrazoiaren doktrina agertu orduko hedatu zen beraz laster horrela, XVI. mendean, larreko sua bezala, mundu berriko estatuburuen gogo-bihotzetan. Piarres Xarriton

Zenbait naziotan, **estatu-arrazoiek** edo erlijio-arauren batek eskatu izan dute familia jakin bat izan zedila beti erregetzan; halakoxe arrazoia da Indietan .85 kastaren ardura eta hartatik behera egiteko beldurra. Iñaki Iñurrieta

Aztal zuta meheak klaskarazi zituen eta " **estatu arrazoia** " hoteleko eskaileretan gora jautzika igotzen miretsi genuen. Itxaro Borda

"ETAren berezitasunak, erakundearen aurkako errepresio etengabea eskatzen du **Estatu arrazoiengatik** , eta kartzela barruan eta kanpoan egin behar da errepresio hori". Jokin Urain

Greziarrek bultzatu egiten zuten emakumeen lasaikeria hau **estatu arrazoiengatik** . Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Esan nahi baita, " **Estatu Arrazoia** " etzi indarberrituko dela botoak eta abstentzioak kontatuz. Patziku Perurena

Ez, beraz, **Estatu arrazoi** horri, interes orokorraren menpean jartzen baitu horrek den-dena. Andres Urrutia

Egoera ez zen gozoa, eta **estatu arrazoia** nagusitu behar zen. Berria - Harian

Estatu arrazoi , nahi eta beharren arabera eginiko auzi politikoen aurrean gaude. Berria - Euskal Herria

Londresek, baina, terroristen aurrean ezin dela makurtu erantzun die, **estatu arrazoia** nagusitu egin behar dela. Berria - Mundua

17 *izateko arrazoi*

Termino horiek guztiek badute beren **izateko arrazoia** iraganean garatu den eredu batean, baztergarritzat hartzen den eredu batean. Txema Ramirez de la Piscina

Buruz buruko borrokaren bidezko frogak esperientzian zuen bere **izateko arrazoia** . Iñaki Iñurrieta

Horregatik, horregatik guztiagatik nekien arnasik gabeko segundo horiek bazutela zentzua, Lorena, **izateko arrazoia** , zeren eta gure baitako irrazionaltasunak ere badu arrazoirik. Lander Garro

Guztiek dute **izateko arrazoia** . Berria - Kultura

18 *merkataritza-arrazoi*

Merkataritza arrazoiak zirela medio [...] gremioari buruzko koaderno lodi bat utzi zuen Napumoceno jaunak larruzko karpetaren barruan. Bego Montorio

19 *urrezko arrazoi* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Barraskiloen espiral logaritmikoetan, koniferoen pinaburuetan zein Notre Dameko arkitekturan eta Mozarten musikan dago **urrezko arrazoia** , beste askoren artean. ETC-prentsa

Elkarren segidan ez dauden bi erpin batzen dituen segmentua eta aldeetako baten arteko arrazoiari **urrezko arrazoia** deritzo. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 20 aldiz agertzen direnak)

arrazoi asko (48); **arrazoi askorengatik** (25); **arrazoi bakarra** (93); **arrazoi bat** (231); **arrazoi bat ere** (28); **arrazoi batengatik** (38); **arrazoi batzuk** (43); **arrazoi beragatik** (54); **arrazoi berarengatik** (22); **arrazoi berberagatik** (23); **arrazoi du** (75); **arrazoi duk** (46); **arrazoi duzu** (125); **arrazoi eman** (62); **arrazoi ematen** (26); **arrazoi gehiago** (39); **arrazoi hori** (44); **arrazoi horiek** (41); **arrazoi horregatik** (40); **arrazoi izan** (33); **arrazoi izango** (33); **arrazoi nagusi** (41); **arrazoi nagusia** (135); **arrazoi nagusiak** (33); **arrazoi nahikoa** (21); **arrazoi on** (20); **arrazoi osoa** (55); **arrazoi osoz** (60); **arrazoi politikoak** (39); **arrazoi politikoengatik** (38); **arrazoi zuela** (50); **arrazoi zuen** (118); **beste arrazoi bat** (88); **beste arrazoi batzuk** (23); **bi arrazoi nagusi** (20); **egiteko arrazoi** (27); **egoteko arrazoi** (25);hainbat arrazoi (44); **hiru arrazoi** (30); **izateko arrazoi** (28); **nahikoa arrazoi** (24); **zer arrazoi** (22)

arrazoia da (62); **arrazoia du** (25); **arrazoia duzu** (30); **arrazoia eman** (136); **arrazoia izan** (29); **arrazoia zein** (24); **benetako arrazoia** (30); **bere arrazoia** (27); **egoteko arrazoia** (22); **horren arrazoia** (122); **izanaren arrazoia** (35); **izateko arrazoia** (41)

arrazoiak argitzeko (21); **arrazoiak direla** (22); **arrazoiak eman** (22); **arrazoiak ematen** (26); **bere arrazoiak** (36); **egoteko arrazoiak** (32); **horren arrazoiak** (35); **istripuaren arrazoiak** (20); **izateko arrazoiak** (31)

arrazoiaren gidaritzapean bizi (22)

arrazoien artean (22)

segurtasun arrazoiengatik (27)

arrazoietako bat (70)

---

arrazoibide 1 *iz* zerbaiten arrazoia adierazteko modua; horretan segitzen den haria.

Hau zen ziurrenik **arrazoibidea** : lobulu frontalen jarduera gehiegizkoek edo patologikoek eragiten zizkietela gaixo eskizofreniko haiei obsesio, haluzinazio eta ilusiozko aztoramenak. Xabier Olarra

Banekien argibidea ez zela zuzena, baina hitzak falta zitzaizkidan, hitz egokiak, **arrazoibidea** , dotorezia, jendearen arreta neureganatzeko. Anjel Lertxundi

Karmenek isil-isilik jarraitu zuen nire **arrazoibidea** , eta guztiari baietz esan zion, gerra galtzearen erantzukizuna bere gain hartzeak izutuko balu bezala. Inazio Mujika Iraola

Eztabaidan balioa dutenak **arrazoibideak** dira. Koldo Biguri

Ekar ditzagun hona, hortaz, labur-labur berriz ere orain arte eman ditugun datu horietako batzuk gure **arrazoibideak** funtsatzen dituztenak, eta ikusiko dugu nola gure

unibertsitate eredua pixkana urruntzen ari den gizarte aurreratuenetan gertatzen ari den eredutik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Haien **arrazoibidearen** arabera, imajinaezina da sala triangular edo pentagonalik. Juan Garzia

Ikusten zuen, adi jarraitzeko ahalegin bat eginez gero, gai zela autorearen **arrazoibideari** jarraitzeko, matematikako teorema baten garapena jarraitzen duenak bezala. Josu Zabaleta

Bloomfieldek morfologiarako eratzen zuen **arrazoibideari** jarraitzen diogu, bi formen artean lehena zein zen erabakitzean: "Formek atalkako antzekotasuna dutenean, azpiko forma zein den erabakitzea zaila izan daitekeela erakutsi dugu, eta hizkuntzaren egiturak erabaki dezakeela arazo hau, [...]. Itziar Laka

Ruche jaunak nahitasun berezia zion halako **arrazoibideari**, gezurrezko hipotesi batetik abiatzen baitzen... egiazko proposizio batera iristeko! Jon Muñoz

-Neurketa zuzenaz iristerik ez zeukana **arrazoibidez** ondorioztatzera abiatua zen Tales. Jon Muñoz

Ezinezkoa litzateke sintaxiko kasu bati buruz arrazoitzea, termino jakin batzuen gainean egingo ez balitz **arrazoibide** hori. Isabel Arrigain

Bazen **arrazoibide** hori onartzen ez zuenik ere. Joxerra Garzia

Eta **arrazoibiderik** gabe, noski, matematikarik ez. Jon Muñoz

Marisak esaten zuen esku baten mugimenduaz maitemintzen dena galdua dela betiko, ez dagoela babestuko duen **arrazoibiderik**, betiko maitatuko duela esku horren jabea, daitekeen kalterik handiena egiten badio ere. Lourdes Oñederra

Nik ez nuen Ramiroren **arrazoibidera** makurtu nahi. Jon Muñoz

Agindu zehatz bat, guztiz ere gainestalia askotariko **arrazoibidez**. Juan Garzia

-Gaia **arrazoibidez** azterturik: nora gindoazke haurdunaldiaren etendurarik gabe? gizakiaren duintasuna **arrazoibidez** jokatzean eta bere kabuz erabakitzean baitatza. Joxe Austin Arrieta

Neure iritzira **arrazoibidez** ekarri nahi zaitudalako noa hain zuzen ere hertsiki eskatuko nizkizukeen eta egiten ahalko ez zenizkidakeen sakrifizioez egiten didazun galderari ihardestera. Jon Muñoz

Ilehoriak, berriz, honako **arrazoibidea** egin zuen, zera, bera nekatuta zegoela bere gona salbatzeko egin behar zituen borrokez eta, hortaz, maleta azkar egin eta bazihoala. Pello Lizarralde

2 (izenondekin eta izenlagunekin)

Hitz ederrak eta **arrazoibide** argiak deus gutxitarako direnean, artean nabari ez zen zerbait sor daiteke gizonaren erraietan, onerako nahiz txarrerako. Anjel Lertxundi

Senar-emazteek elkarrekin edaten zutenean, bozkariozko une labur bat partekatzen zuten, eta gero, inolako **arrazoibide** agerikorik gabe, kalapita basatian liskartzen ziren. Mirentxu Larrañaga

Bestalde, **arrazoibide** faltsu horri jarraitzera, politikariak era berean onartu beharko lituzke neurriaren kontrakoek bide beretik argudiatzen dituztenak. Iñaki Heras

Danimarkako Erregeari **arrazoibide** onez mintzaturik ez duzu alferrik izango elea. Juan Garzia

Horrela, bada, Ortega-eta "arrazismo biologikotik" libratu nahi dituen **arrazoibide** ilun horren pean dirdirkatzen, zalantza gabe badago egia bat zilegizkoa, arraza usu aipatze hutsak ez duela inor arrazista bihurtzen. Joxe Azurmendi

Glizerina irensten eta liseritzen ere ahalegindu nintzen, **arrazoibide** sinplista batean oinarriturik: alegia, gantzen hausturatik sortua izanik glizerina, metabolizatzeko eta kaloriak hornitzeko modukoa izan behar zuela, aldez edo moldez, hark ere. Juan Garzia

Jaungoikoa ezagutzera iritsi direnek ez diote aintzarik, ez eskerrik eman Berari dagokion bezala; baizik **arrazoibide** hutsaletan galdu dira eta beren adimen zentzugabea ilundu egin zaie. Imanol Unzurrunzaga

On Camillok ez zuen zirkinik egin: etzanda jarraitzen zuen lur hezearen gainean, ihi bat mastekatuz, eta bere **arrazoibide** korapilatsua harilduz. Koldo Biguri

Guk ere -geure burua argitzat daukagunok- dama horien antzera jokatzen dugu askotan; eta horren frogagarri dira gure **arrazoibide** zientifikoak. Jose Morales

Arrazoibide politiko, juridiko eta filosofikoarekiko, batetik; eta egiptoar eta babiloniar matematikariekiko, bestetik. Jon Muñoz

Aipatu auzi zehatz horri jarraituz, eta auzi orokorrari buruz ere, bada beste ikuspegi edo **arrazoibide** interesgarri bat…[...]. Iñaki Heras

Guk leku komun, *Topoi,* esango diegu premisa orokorroi, eta hor dago Tropikoen (**arrazoibide** dialektikoari buruzko tratatuen) jatorria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Liburu honek biltzen dituen testuak [...] astiro irakurriz, nabari da **arrazoibiderik** zorrotzena, muturreraino eroanda, erdi txoratu-edo egiten dela. Markos Zapiain

Baliteke bihurri samarra izatea nire **arrazoibidea**, baina zure bideak ere ez ziren zelai eta lau-lauak. Xabier Mendiguren Elizegi

Agindu zehatz bat, guztiz ere gainestalia askotariko **arrazoibidez**. Juan Garzia

Orobat, ez dut hemen adierazi nahi grisette baten hiltzailea aurkitzeko Parisen hartu ziren neurriek, edo antzeko **arrazoibideetan** oinarrituriko edozein neurrik, antzeko emaitzarik ekarriko zutenik. Koro Navarro

Plazer duzu amarruzko **arrazoibidez** ni asaldatzen; itzurtzen zatzaizkie nireei. Jon Muñoz

Zergatik iruditzen zitzaidan **arrazoibide** hori baliogabea, kontra esatekorik ezer ez banuen ere? Josu Zabaleta

Arrazoibidea arrazoizkoago izan zedin, eta sakonago, idazle txekiar buruzuri baten ahotik hauxe adieraziko nuke jarraian: [...]. Karlos Linazasoro

Zuzenak dira nire **arrazoibideak**, garbi nago Jainkoaren begien aurrean. Elizen arteko biblia

Charliek eta biok bestelako argudio eta **arrazoibideak** genituen Big Joeren desagertzea azaltzeko. Mirentxu Larrañaga

Aurreko **arrazoibideak**, ongi azalduta, Jaungoikoaren existentzia frogatzen digu egiaz. Imanol Unzurrunzaga

Kontua da Margak gai hartan ez zuela inongo **arrazoibiderik** onartzen. Ramon Saizarbitoria

3 (hitz elkartuetan)

Bidezko da, beraz, bai giza **arrazoibidez** eta bai fedezko onarpenez, gurutzearen hain maitasun harrigarria bizi izan zuen gizona, gurutzearen ohore harrigarriaz miresgarri bilakatzea. Askoren artean

4 irud/hed

Lehergailuak gerrian loturik zeuzkanean, bere egiten zituen dinamitaren **arrazoibide** bortitza eta suzko indar hilgarria, bera ere lehergailu bihurtuko balitz bezala. Jose Morales

5 ***arrazoibidezko*** *izlag*

Baina **arrazoibidezko** ahalegin batez ideia hori uxatu eta Grettaren eskua laztantzen jarraitu zuen. Irene Aldasoro

Hainbat hipotesi erabili nituen, **arrazoibidezkoak**, neurrikoak, izen mikatz bat ekarri zutenak ondorio gisa: konplota. Karlos Linazasoro

6 ***arrazoibide deduktibo*** *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Arrazoibide deduktiboa edo besterik gabe dedukzioa baieztapen baten frogapena edo horren aldeko argudioa da, premisa batzuetatik konklusio batera helduz, logikaren arauetan oinarrituta. ETC-entziklopedia

Behin lan hori egin dela, teoriatik ondorioztatu ahal izango ditugu gure hipotesiak, **arrazoibide deduktiboa** erabiliz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azkenik, berezko natura abstraktua, eta honek dakartzan prozesu konplexuak (**arrazoibide deduktiboa**, hizkuntza, prozesatze espaziala). ETC-zientzia, zuzenbidea

Alde batetik, geometriako software dinamikoari dagokion arrazoibide induktiboa, eta tradizioz frogapen formalei dagokien **arrazoibide deduktiboa** -paper eta arkatzezko frogapenak-. ETC-zientzia, zuzenbidea

Batetik, froga teorikoak daude, eta, horietarako, **arrazoibide deduktibo** edo analitikoak behar izaten dira, zeren adierazpen edo lege orokorretatik abiatu behar baita gero datu zehatzei zentzua emateko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esate baterako, 8.3.1. ataleko lehenengo adibidean **arrazoibide deduktibo** bat aurkeztu da, eta hura balia daiteke egitura deduktibo bat zertan datzan argitzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 arrazoibide induktibo

Medikuntza klinikoa berritze modura ulertuta, alegia ikuspuntuen berritze modura, edukiena, deskribapenaren formen eta estilo beraren berritze modura, **arrazoibide induktiboen** eta probabilistikoen erabilpenarena, kausaltasuna esleitzeko moduena, laburbilduz, enuntziazio-modalitateen berritze modura ulertuta, ez da jo behar behaketa teknika berri baten emaitzatzat -hots, ez da jo behar autopsiaren emaitzatzat, XIX. mendea baino askoz ere lehenago erabiltzen baitzen- ez eta kausa patogenoak organismoaren sakontasunean [...]. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arrazoibide hori (9); **arrazoibide horri** (3); **arrazoibide hutsaletan galdu** (3); **edo arrazoibide** (3)
bere arrazoibidea (6); **nire arrazoibidea** (3)
arrazoibideak ematen (3); **arrazoibideak ez** (4); **bere arrazoibideak** (3); **diren arrazoibideak** (3)
bere arrazoibidearen (3)
arrazoibiderik onartzen (3)

---

arrazoibidetsu 1 *adlag* arrazoibidez beterik.

-Ba al dago alderik? -galdetu zuen Adak **arrazoibidetsu**-. Anjel Lertxundi

---

arrazoidun *izond* arrazoia, adimena duena. ik **arrazional 2**.

Hegaztiak ikusi zituenean, Jainkoaren santua korrika eta alai joan zen leku hartara eta agurtu egin zituen, izaki **arrazoidunak** balira bezala. Askoren artean

Ohiturazko zuzenbidearen aurrean, lege **arrazoidun** horrek idatzian du euskarria, idatzia baita ororen zimentarri eta egontokia. Andres Urrutia

146 Giza gogamenak berezko interesa hartzen du moraltasunean (edozein **izaki** arrazoidunengan halabeharrez gertatzen den bezala, sinesten dudanez), nahiz eta interesa zatitua dagoen eta praktikoki garailea ez den. Ibon Uribarri

Gure biktima gaixoak: haien sufrimendua gure Ideiaren irozgarria da; haiek biktimago eta gu **arrazoidunago**. Iñaki Segurola

Ene herriko kanta nostalgikoak Maien eleak estali zituen, aldi berean **arrazoidun** nahikundez eta sentimentalki erabat galdua nengoela. Itxaro Borda

Arima **arrazoidunak**, nolanahi ere, haren graziaz garbituak, honelako ikuskizunera irits daitezke, eta ez dago hau baino ikuskizun bikainagorik ez eta zoriontsuagorik. Imanol Unzurrunzaga

Baita **arrazoidun** gizakien adimenaren argi izpirituzkoa ere. Joan Mari Lekuona

Hirugarrenik, frogatzen da Jainkoak gizona egin duelakotz abere **arrazoidun** hiritar edo politiko bezala Aristotelesen eta san Tomasen arabera. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arima arrazoiduna (12); **arrazoiduna dela** (3)
arima arrazoidunak (6)
arima arrazoidunaren (5)

---

arrazoigabe *izond* funtsik gabea.

Ez zuen sekula pentsatu inongo eskubiderik zuenik besteen gainean, ezta besteek ere bere gainean: biziak emandako dohainak **arrazoigabe** eta doakotzat hartzen zituen. Monika Etxebarria

Ebazpen hori, ikusiko dugunez, ez da erabat **arrazoigabea**. Juan Garzia

Akordioa EAEko gobernua nazionalista zelako haustea zentzugabea eta **arrazoigabea** da. Berria - Euskal Herria

Behiak jatea eta hiltzea debekatzen duen legea, beraz, ez da **arrazoigabea** Indietan. Iñaki Iñurrieta

Bestela esanda, osagai-egituraren arabera **arrazoigabea** eta azalezina dirudien hizkuntz jokabide jakin batek erraza eta ereduzkoa ematen du ikuspuntu formaldatzailea onartzen dugunean. Itziar Laka

Izan ere, egokitzearen kontua -eta are berak ezagutzen zuen bizitzarena- patuaren zartako **arrazoigabe** batek eten zuen; gaixotasun batek, alegia. Xabier Olarra

Kopuruak, berriz diot, gizon bakarra geldiaraziko lukeen beldur izugarri eta **arrazoigabe** hori ezabatuko luke. Koro Navarro

Kezka hau ez da **arrazoigabea**. Joseba Zulaika

---

arrazoigabeko *izond* arrazoigabea.

[...] Heriotzaren gordina egosi arteko onik ez izatea, **arrazoigabeko** heriotza irentsi ezinak bere buruari su emateraino bulkatzea... horiek handiak dira hemen hauetan eta Ala jainko bakarraren adoratzaileen federik ez duten kristauen artean. Iñaki Segurola

Horiek, berriz, ezagutzen ez dutena ere iraindu egiten dute, eta **arrazoigabeko** senez, animaliek bezala, ezagutzen dutena galbide gertatzen zaie. Elizen arteko biblia

---

arrazoigabetasun *iz* arrazoigabe izatearen nolakotasuna.

Sekretu ulertezin hori du barkamenaren **arrazoigabetasunak**. Joseba Zulaika

---

arrazoigabetze *iz* funtsik gabe uztea edo utzaraztea.

Zorayda Arrarasek logikaren **arrazoigabetze** hori pixkaka-pixkaka bere izterretan behera eta gorago nola obratzen zen sentitu ohi zuen, ez nahi baino lehenago. Iñaki Segurola

---

arrazoigarri ik **arrazoizko**.

---

arrazoika *adlag* arrazoien bitartez.

Sobera joa nintzen **arrazoika** aritzeko, nahiz ene baitan egiten nuen amodio bero bati uko egitea, norbait zinez maite denean, munduko gauza hitsena daitekeela, edozoin eginbide izan bestaldeøø. Janbattitt Dirassar

---

arrazoikari *iz* arrazoia erabiltzen duena.

Profeta esatean ulertzen dugu hemen izpiritu handiak, zorrotzak eta **arrazoikariak**, beren naturazko asmamenaren zorroztasunari emanak daudenak, eta hortik beren harrokeria. Joan Mari Lekuona

---

arrazoikera *iz* arrazoitzeko era.

Entzuleak espero ez zuen **arrazoikeraz** bertsoa biribiltzen maisu zen. Andoni Egaña

arrazoikeria *iz* arrazoiaren erabilera gaitzesgarria.

Halako inferentziei beren emaitzari begira **arrazoikeriaren** inferentziak deitu behar zaie arrazoimen-inferentziak deitu ordez, nahiz eta aukeran azken izen hori jaso dezaketen, ez baitira asmatuak edo hautazkoak, arrazoimenaren izaeratik sortuak baizik. Ibon Uribarri

---

arrazoikeriazale *(corpusean **arrazoikerizale** soilik) izond/iz* arrazoikeria erabili zalea.

Era honetara, **arrazoikerizale** hauengan anizkuntasunaren interesa nabarmentzen da (espezifikazioaren printzipioaren arabera), haiengan, ordea, batasunaren interesa (agregazioaren printzipioaren arabera). Ibon Uribarri

---

arrazoiketa 1 *iz* ondorio batera heltzeko elkarrekin lotzen diren argudioen segida.

Beraz, **arrazoiketa** oso ahulak, baina "sentimendu" oso sendoak eusten dio, oso sendo, konbentzio txiki horri. Joxe Azurmendi

Ebazpenaren arrazoian sartu gabe, Seaskak gogor gaitzetsi du epailearen **arrazoiketa** eta agintariei zein hizkuntza politikaren arduradunei kargu hartu die. Berria - Euskal Herria

Nire **arrazoiketa** ez dagokie meategi guztiei: Iñaki Iñurrieta

Guri dagokigunez, hiru **arrazoiketa** edo gertaera ekar ditzakegu hona, hizkuntza berreraiketetan jarria dugun ustea emendatzera datozenak: Isabel Arrigain

Bere **arrazoiketa** osorik jarraitzerik izan ez dudan arren, batez ere juduez, euren bekatuez eta euren jainkoaz esandakoak, harrapatu naute hitzek. Urtzi Urrutikoetxea

Egiazkotzat jotzen diren proposizio batzuetatik, inferentzi-arauak bide-makulu harturik, beste proposizio batera iristen den **arrazoiketa**-modua. Anjel Lertxundi

Pertsonaia ezberdin bati buruz ari ziren, baina biek bat egin zuten sentimenduan eta **arrazoiketan**. Unai Iturriaga

Haserrearen biziak edonolako **arrazoiketa** eragozten zion arren, bete-betean asmatzen zuen irainik mingarriena aukeratzean. Xabier Montoia

Eta ez dago ezer apartekorik, **arrazoiketa** kontu hutsa da: denbora, garaia, moda eta une psikologikoa kontuan hartuz gero, hortik berehala ateratzen duzu hau eta bestea gerta daitezkeela halako giro batean eta gauzak halako moduan egonda. Koldo Biguri

Orain jar gogoa **arrazoiketa** zuzen batera. Xabier Amuriza

Arrazoiketa arin bezain sobrioa egin zuen orduan: ezin ziren Marcos eta Roma izan, Lisboan zeudelako. Unai Elorriaga

2 ***arrazoiketa automatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

IBMk Watson lengoaia naturalen prozesamendua, informazio bilketa, ezagutzaren errepresentazioa, **arrazoiketa automatikoa** eta ikasketa automatikoa erantzunen bilaketaren eremu irekian aplikatzen dituen teknologia aurreratuen sistema bezala deskribatzen du. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)**
>
> **absurdoaren bidezko arrazoiketa** (3); **arrazoiketa bidez** (3); **arrazoiketa bidez konpondu** (2); **arrazoiketa horren** (2); **arrazoiketa izaten** (2); **arrazoiketa izaten dira** (2); **arrazoiketa modu** (2); **bere arrazoiketa** (3); **bidezko arrazoiketa** (3); **buruzko arrazoiketa** (4); **esperientzia eta arrazoiketa** (2)

---

arrazoimen 1 *iz* arrazoiketak gauzatzeko ahalmena. ik **arrazoi**.

Lotsa apur bat nuen nire jarreraz: orduan konturatu nintzen zelan galdu daitekeen gure **arrazoimena**, zelan bizitzako egun batzuk gauzak zailtzeko gai diren. Urtzi Urrutikoetxea

Hasi zen onartzen, **arrazoimenaz** ez ezik sakonagotik ere, kolorearekiko itsu zela erabat, eta halaxe jarraituko zuela ziur aski. Xabier Olarra

Arrazoimenari eusten diot. Joxe Austin Arrieta

Kontzientziaren eta **arrazoimenaren** ohartasuna erdi lausotuta zituen, eta malkoak biltzen zitzaizkion, antza, begien ertzetan. Ibon Uribarri

Hortaz, egokia da **arrazoimen** maila ona eta arreta mantentzeko gaitasuna dituzten ikusleentzat. Berria - Kultura

Gainerakoan, neure **arrazoimena** erabiltzen dut, nire burua zuzendu; gehiegizko apaltasunik gabe: gero eta hobea naiz eta, zure aldetik pixka bat jarriz gero, ondo konponduko gara. Itziar Otegi

Zure mingainak ez diezaiola zure **arrazoimenari** aurrea hartu. Pako Aristi

Orduan ez **arrazoimenari** ez bisaiari eusten diet beren onezkoan, eta malkoak irritzen zaizkit isilka maisailetan behera, barren barrengo su gordeak nola atsekabetzen nauen erakutsiz. Patziku Perurena

Non zen **arrazoimena** zure bizitzako maiteak irain egin berri dizunean salaketa ezin izugarriagoekin, zure "ni" zorigaiztoko hori erdiratuz beraren erdeinuaren aizkorakadez? Oskar Arana

Ez adimena, ez **arrazoimena**, ez dira sortzaile. Josu Zabaleta

2 ***arrazoimenaren argi***

Eta Holandaz maitemindu zen, han haize-errota mordoa baitago, baita bonbillen argiaganako begirunea ere, **arrazoimenaren argitzat** hartua. Fernando Rey

Lege idatzi baten bidez, ordu arte sakabanatuta zegoena testu bakar batean jartzekoa zen, gizabanakoaren adimen eta **arrazoimenaren argitan**, aro berriari zegozkion lege zibil berriak egokiro eho eta mamituak. Andres Urrutia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abiatzen den arrazoimen** (3); **arrazoimen adigai** (7); **arrazoimen adigaia** (4); **arrazoimen batasuna** (3); **arrazoimen baten** (3); **arrazoimen berak** (5); **arrazoimen erabilera** (3); **arrazoimen espekulatibo soilaren** (5); **arrazoimen espekulatiboak** (10); **arrazoimen ezagutza** (17); **arrazoimen ezagutzaren** (5); **arrazoimen hori** (3); **arrazoimen huts** (12); **arrazoimen hutsa** (11); **arrazoimen hutsak** (28); **arrazoimen hutsaren alorrean** (4); **arrazoimen hutsaren antinomia** (8); **arrazoimen hutsaren bitartez** (5); **arrazoimen hutsaren diziplina** (7); **arrazoimen hutsaren erabilera** (8); **arrazoimen hutsaren filosofia** (4); **arrazoimen hutsaren ideala** (4); **arrazoimen hutsaren inferentzia** (3); **arrazoimen hutsaren kanonaren** (3); **arrazoimen hutsaren kritika** (31); **arrazoimen hutsaren printzipioek** (3); **arrazoimen hutsaren sistema** (5); **arrazoimen hutsetik abiatuta** (5); **arrazoimen inferentzia** (28); **arrazoimen praktikoak** (3); **arrazoimen praktikoaren kritika** (4); **arrazoimen soilaren bitartez** (3); **atala arrazoimen hutsaren** (7); **atalburua arrazoimen hutsaren** (7); **bere arrazoimen** (5); **berean arrazoimen** (4); **giza arrazoimen** (12); **gure arrazoimen hutsaren** (3); **orduan arrazoimen hutsaren** (4); **transzendentala arrazoimen hutsaren** (3)
>
> **argiaz eta arrazoimenaz** (3)

---

arrazoin ik **arrazoi**.

---

arrazoinamendu *iz* arrazoiketa, arrazoibidea.

Bai segur, ongi baino hobeki egin nuela bezperako **arrazoinamendu** bihurrian ez tematurik! Daniel Landart

Hori hola denetz bakoitxak bere gisarat ikus dezala bainan hori egiarentzat harturik ere, ez du horrek deus kanbiatzen gure **arrazoinamenduari**. Herria

Gizona bere errametaz segur zen, haren jarraitzaileen leialtasuna begi bistakoa zen eta, haren **arrazoinamendua** xuxen zen. Elena Touyarou

Bazuten bederen gure **arrazoinamendu** eta argumentuek arrazoi premiatsurik? Zangozan zuen autoa Mariak. Piarres Aintziart

Angelen Mercedesa seinalatu zuen bere **arrazoinamendua** bukatu aurretik: "Zu ere bere kasuan zaude. Bernardo Atxaga

Handik goiti, zuzen ala oker, euskalduntasunaren lokarriak bertze edozein **arrazoinamendu** baino sendoagoak izanen ziren, zuberotarrak nahiz baxenafartarrak beti nirekin bat egiteko tenorean. Aingeru Epaltza

Arrazoinamendu hori atera bazuten atera, jendeen aho-mihitan ez zen besterik izanen laster. Xipri Arbelbide

Horrelako **arrazoinamenduen** aurrean, zer erantzun ez zekiela geratu zen nagusi jauna. Jose Morales

Ez Gérard-ek **arrazoinamendu** zuzena duelako eta euskal presoen kontrako posturaren defendiatzen balakikeelako. Eneko Bidegain

Negozioetan aditua izaki, Selim Aluanek onartu egin zuen haien **arrazoinamendua**. Patxi Zubizarreta

Badago **arrazoinamenduarekin** mundua ulertzerik, baina, betiere, ziurgabetasunari lekua eginez gero. Berria - Gaiak

Argitu dut horrela, Arruntak deitzen ditugun eta gure **arrazoinamenduaren** oinarriak diren nozioen kausa. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ados arrazoinamendu gisa (3); **arrazoinamendu gisa horrekin** (3); **arrazoinamendu mota hori** (3)

indukziozko arrazoinamendua (6)

---

arrazoinatu ik **arrazoitu**.

---

arrazoinbide ik **arrazoibide**.

---

arrazoipide ik **arrazoibide**.

---

arrazoitsu *izond* arrazoizkoa.

Jakina baita gizona gehiago dela arrazoi koherenteketan, ikasiagoa eta zailduagoa datorrela berenaz hitzezko gezur-jarduna itxurapen koherente eta **arrazoitsu** batez gainzuritzen. Iñaki Segurola

Alta, maistrarekin beste era bateko harremanak izateko aukera eman zidan, hots, harreman **arrazoitsuagoak**, ideologikoagoak; apika ez zen gauzatuko hori, baldin eta eten mingarri hura gertatu izan ez balitz. Juan Kruz Igerabide

---

arrazoitu, arrazoi(tu), arrazoitzen **1** du *ad* arrazoimenaz baliatu ideiak edo iritziak eratzeko edo arrazoibidea gidatzeko.

Geldi-geldi jarraitu nuen, **arrazoitzeko** ahaleginetan. Koro Navarro

Hortaz, nola **arrazoitu**, nola zuritu...? Xabier Mendiguren Elizegi

Esan zuen askotan saiatu zela amarekin **arrazoitzen**, eta ahaleginak egin zizkiola elkarte batean sar zedin. Irene Aldasoro

-Ba kitto - **arrazoitu** zuen Alexek. Fernando Morillo

Alde hark **arrazoitzen** zuen nire idatzi nahia, baina haien ondoan bizi izan nuen bakardadearen amildegian ezartzen ninduen berriro. Joxan Elosegi

Badira jendeak ardura ez zaienak zer egiten duten, **arrazoitzen** ez dutenak, ausartegi jokatzen dutenak. Joan Mari Lekuona

-Ba nik Jabiri **arrazoitzeko** gaitasuna ikusten diot. Lander Garro

2 du *ad* zerbaiten arrazoiak eman.

Saer idazleak Ortiz idazlearen adibidea darabil zeregin nagusia idaztea dela **arrazoitzeko**. Hasier Etxeberria

Arrazoi ugari eman litezke portaera hori **arrazoitze** aldera. Txema Ramirez de la Piscina

Hain zuzen, iritziaren oinarria **arrazoitzen** edota sinesten duenaren errorean edo egian datza; sentipena, aldiz, usadioan edo naturan oinarritzen da. Imanol Unzurrunzaga

-Arrazoitu egin beharko duzu hori. Anton Garikano

Ez ginen gauza hura modu egokian **arrazoitzeko**. Juan Kruz Igerabide

3 (era burutua izenondo gisa)

"Rodolfo, baina... ", Rosak erantzun **arrazoitu** bat espero zuen. Aritz Gorrotxategi

Bata, aipatu beharrik ez dagoen jakineko beste kasu **arrazoitu** batzuetan ez bezala, itsu-itsuan hartu, sinetsi eta zabaldu direla Euskopolen bertsioak. Iñigo Aranbarri

Hasieran, ez zen gorroto **arrazoitu** bat baizik, besoak antxumatu eta besteek emandakoa jaten duten pertsonengana zeukanaren parekoa; ez zitzaion bururatu otorduak berean egitea aurpegiratzerik. Karlos Zabala

Bide bertsutik, jurisprudentziari utzi dizkiogu kasurik arraro eta ez ohikoenak, halakoak ez baikenituzke legeria **arrazoitu** baten egitasmoan. Andres Urrutia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

arrazoitu behar (5); **arrazoitu beharko** (3); **arrazoitu daiteke** (2); **arrazoitu du** (27); **arrazoitu duenez** (5); **arrazoitu dute** (7); **arrazoitu gabe** (3); **arrazoitu gabeko** (2); **arrazoitu izan** (2); **arrazoitu zuen** (50); **asko arrazoitu** (2); **autoan arrazoitu** (2); **egin izana arrazoitu** (2); **erabakia arrazoitu** (2); **erakundeak arrazoitu** (2); **erakundeak arrazoitu zuen** (2); **esanez arrazoitu zuen** (2); **estatistika erakundeak arrazoitu** (2); **ez dela arrazoitu** (2); **guztiak arrazoitu** (2); **hala arrazoitu zuen** (3); **honela arrazoitu** (2); **hura arrazoitu** (2); **nola arrazoitu** (5)

arrazoitua edo zertarakoduna (2); **arrazoitua egiteko** (2); **arrazoitua emateko eskatu** (2); **ebazpen arrazoitua** (2); **katalogo arrazoitua egiteko** (2)

arrazoituz gero (3); **kontrakoa dela arrazoituz** (2)

---

arrazoitzaile *izond* arrazoitzen duena.

Irakurlearen sentsorialtasun **arrazoitzaileari** bultz egiten dio, komunikazio giro baten barruan. Xabier Amuriza

Agian, hauek nonbaitetik hondatu ote daitezke, **arrazoitzaile** oro galdu edota haragizko gutizien atzetik joanda ere? Imanol Unzurrunzaga

---

arrazoitze *iz* arrazoimena.

Arrazoitze askorik gabe uler daiteke autoritatearen aurkako atentatu batean parte hartzen ari zela. Berria - Harian

Baina, arrazoi zuzenaren aurka ez doana eskubidez egiten dela onartuz gero, onartu behar dugu arrazoi zuzen horrek gorrotatzen duena eskubidearen aurka egiten dela (hots, **arrazoitze** zuzen batez ezarritako egiazko printzipioetatik datorren egiaren baten kontra doala). Esteban Antxustegi

Torturaren izaera okerra/zuzena bertutearen arabera **arrazoitzea**. Askoren artean

Ziur nago ez dagokidala niri **arrazoitzea** zer dela eta zigortzen nauten neke horien bidez; burua makurtuko dut han, eta badakit Jainkoaren aurrean makurtuko dudala. Jose Morales

Hilezkortasuna **arrazoitzeari** buru-belarri emanik, argirik pizteke utzia genion gauari etortzen. Juan Garzia

-Zurekin alferrik da **arrazoitzea** -bukatu zuen On Camillok. Koldo Biguri

Irakurlearen inplikazio hau lortzeko, lau prozedura nagusi darabiltza: irakurlea solaskide bihurtzea; tesi bakoitza berau finkatzen den sentsazioaren eta oinarrizko dituen

inferentzien perspektiba bikoitzetik **arrazoitzea**; konparazioa; eufonia. Xabier Amuriza

Erlijioaren kontra gaizki **arrazoitzea** da obra batean hark eragindako kalteen zerrenda luzea biltzea, horrekin batera hark ekarri dituen onen zerrenda ere egiten ez bada. Iñaki Iñurrieta

Haserrea **arrazoitzea** baino lan alferrikakoagorik ba ote? Pedro Alberdi

Ezinezkoa litzateke sintaxiko kasu bati buruz **arrazoitzea**, termino jakin batzuen gainean egingo ez balitz arrazoibide hori. Isabel Arrigain

---

arrazoizale *izond/iz* arrazoia erabiltzearen aldekoa.

Jeloskor zaude ordea, eta jelosia ez da **arrazoizalea**. Jon Muñoz

Arrazoizalea izana nintzen ordura arte nire bizitzan bai, baina ez nengoen oso pozik lortutakoarekin. Hasier Etxeberria

Arrazoizalea, kulturaz jantzita, entziklopediei begira ematen ditu egunak. Berria - Kultura

Filologoak ez luke intelektual errealista, aurrerakoi eta **arrazoizale** merkea izan nahi, baina inolaz ere ezin egin dezakeena da bere baitan daraman su fedekalte hura ilauntzen uztea. Iñaki Segurola

---

arrazoizko *izlag* zentzuzkoa, bidezkoa; arrazoimenaren araberakoa. ik **arrazional**.

«Herritarren artean gehienak, hamarretik bederatzi, zintzo-zintzoak dira eta euren jokaera **arrazoizkoa** da. Berria - Euskal Herria

Beste egoera batean bagina, erantzungo ziokeen zerbait Lauaxetak neskatoaren suminaldi absurdu hari, modu **arrazoizko** batez erantzun ere. Juan Luis Zabala

Normalean, irrazionala dena, **arrazoizko** botoa eman beharrean suminaren eta bihotz-ukaldiaren hautua egin duena... Iñigo Aranbarri

Haren helburuak **arrazoizkoak** ziren beti. Juan Garzia

Diruaren korritu zentzuzkoak enpresa jarduera guztiak bultzatzen ditu; lurjabeei ematen die -laborantza berrietan euren burua sartu nahi izanez gero-, salneurri **arrazoizko** baten barruan, xede horretarako laguntzak eskuratzeko itxaropen oinarriduna. Andres Urrutia

Romeo eta Julietaren jokabidea ez zitzaion oso **arrazoizkoa** iruditzen. Joxean Agirre

Bai, hori guztia bazekien, eta semeek **arrazoizko** gomendioak eman zizkiotela; egia esatera, lehendik ere pentsatua zuen halakorik. Patxi Zubizarreta

Zientziak, unibertsoa deitzen dugun mamut horren behatz-hezurtxo baten deskribapena ematen digu; filosofiak mamut hori nolakoa izan daitekeen **arrazoizko** hipotesi bat nahi digu eman. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrazoizko epe** (4); **arrazoizko zerizan** (5); **arrazoizko zerizanaren** (3); **artean arrazoizko bereizkuntza** (3); **zentzuzko eta arrazoizko** (6)
> **arrazoizkoa al da** (3); **arrazoizkoa dela** (5); **arrazoizkoa dirudi** (3); **arrazoizkoa zen** (6); **baita arrazoizkoa** (3); **ez da arrazoizkoa** (3); **hori arrazoizkoa** (5); **oso arrazoizkoa** (4)
> **arrazoizkoak dira** (3); **arrazoizkoak ziren** (3)

---

arrazoizkotasun *iz* arrazoizkoa denaren nolakotasuna.

Beraz, **arrazoizkotasunak**, fedearentzat, kaltegarri ez baina lagungarri eta osagarri beharko duela izan handik aurrera. Askoren artean

Beste era batera esanda: historiko eta kulturalki eraikia dagoen **arrazoizkotasun** arrunt onartu batek, ez bestek. Joxe Azurmendi

Nahiz eta jardunbide honen **arrazoizkotasunaren** eta erabilgarritasunaren aurka ezer ez dugun, baizik, aitzitik, bera gomendatu eta sustatzen dugun, horregatik, ordea, ezin ditugu froga-era honek dituen uziak onartu ziurtasun apodiktikoaz eta faborerik edo sustapen arrotzik behar ez duen onarpenaz. Ibon Uribarri

---

arrazonamendu *iz* arrazoimena, arrazoitzea.

Arestiko mezuok gaitz bera dute: ez dira sinesgarriak, ez daude **arrazonamenduaren** logikan oinarrituta. Txema Ramirez de la Piscina

Baina berdin du horrek: isilik geratuz gero berak ematen du erantzuna; **arrazonamenduaren** konfirmazioa. Xabier Etxabe

-Horrelako **arrazonamenduek** etsaiaren garaipenaren alde soilik egiten dute -esan zuen Gandalfek. Agustin Otsoa

Txosten laburrak egin ditzakete, beren interpretazioa, emaitzak eta **arrazonamenduak** adieraziz. Berria - Harian

Ezin zaio aitzakiarik aurkitu **arrazonamendu** horri. Luis Elberdin

Zureak bezalako **arrazonamendu** motelekin mutilok ez dute herriaren askapen prozesua bururaino eramaten ahalko, eta betiko etsaien aztaparretan gatibu egongo gara. Itxaro Borda

Hauxe da **arrazonamendu** moralaren funtsa, giza ezagutzaren zatirik handiena osatzen duena eta giza egintza eta portaera guztiaren sorburu dena. Patziku Perurena

Aho bete hortz uzten ninduten Dodoven **arrazonamenduek**, ez nuen uste lorazaina hain idiota zenik. Karlos Linazasoro

Diamante handiek, dirudienez, ezabatu egiten dituzte pertsonen **arrazonamendu** ahalmenak, piztu ezkutuan hobiratutako grinak, eta itsutu argiturik egon beharko luketen zentzumenak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta osotasuna lortu baino gehiago, ulergarritasuna eta **arrazonamenduaren** baliozkotasuna bilatuko ditugu, bidean errepikapen batzuk bazter utzita gelditzen badira ere. Iñaki Arranz

---

arrazonatu, arrazona, arrazonatzen *(ETCn **51** agerraldi; orobat **arrazoitu** ETCn 7.**383** agerraldi)* du *ad* arrazoimenaz baliatu ideiak edo iritziak eratzeko edo arrazoibidea gidatzeko. ik **arrazoitu**.

Osaba hori bikaina zen hargintzan, baina ahul samarra **arrazonatzeko** orduan, agian Orso Nerok lan gehiegi eginarazten ziolako. Pello Lizarralde

Gozada bat da gazte hauek **arrazonatzen**-irrazionatzen-sortzen mirestea. Berria - Kultura

---

arrazu ik **arrazoi**.

---

arre[1] **1** *izond* lur ilunaren kolorekoa.

Aurreko espaloitik, beroki **arre** batez jantzitako gizon batek keinu ez oso nabarmen bat egin zien. Alberto Ladron Arana

Aspaldian ez nion ikusi begiradan oroitzapen txarren agerpenak ematen dion distira **arre** hori. Pako Aristi

Bestaldean, Gorgomendi gaina gorri **arre** ia morez margulduа. Pello Zabala

Azazkalak ubel, besoak **arre**, eskuak zurixka, belakien kolore... Joxe Austin Arrieta

Ordurako zerua eta itsasoa **arre** kolore beraz ilunduta zeuden. Anjel Lertxundi

Poltsikotik egunkari zati **arre** batzuk ateraz haren letraz letrakoari ekin zion. Josu Landa

Erretratuen koloreak, oro har, **arre** ilunkarara jotzen du. Monika Etxebarria

Euli **arre**, gris eta beltzek, orkoen ezaugarriaren antzeko begi gorria zirudien makulaz markaturik, burrunba egiten zuten, eta nonahi itsasten ziren; eta txilardien gainean eltxo gosetien hodeiak dantzan ari ziren biraka. Agustin Otsoa

Neskatxak katu gizen **arre** argia hartu zuen besoetan eta lehengusuaren belaunen gainean paratu, Moutonek ere istorioa entzun nahi zuela esanez. Karlos Zabala

Naftalina-usaineko jantzi **arre** bat tolesten ari zen Ellen. Lopez de Arana

2 *izond* isurkariez, bereziki uraz, mintzatuz, berezko gardentasuna ez duena, lohitasun ugari duena. ik**uher**.

Ni ez naiz tristura horren arduraduna, baina bizitza osoa daramat nondik datorkidan jakin guran, ibai **arre** eta lingirdatsu horren sorburua noraino iristen den irudikatu nahian. Pako Aristi

Errekak, euriak iraun bitartean **arre** joan ondoren, ur garbia zeraman berriro: ispilu pusketaz egindako lerro batek bezala erdibitzen zuen bailara. Bernardo Atxaga

Goiko aldean haren ura **arre** samarra da eta osasunerako ez guztiz ona, baina Nijni Novgorodetik aitzina aldatu egiten da, Errusia erdi aldeko probintzietatik datorren Oka ibaiaren ur lasterrarekin nahasten denean. Karlos Zabala

Berak, neurri handi batez urezkoa zela jakingo balu bezala, ura maite zuen, itsasoko ur geldigaitz, erasokor, olatuen hazilaria; errekastoko ur leiar, inozo, jostalaria; ibaiko ur **arre**, jeloskor, salataria. Felipe Juaristi

3 ***alga arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi)*

Karibeko portuetan ez da sekula **alga** arrerik, salikorniarik edo itsasbelarrik ikusten, ezta itsaso arrunt orok ustez izan beharko lukeen ezein sapropelen arrastorik ere. ETC-literatura, saiakera

Alga arreetan gertatzen den bezala, gainera, zenbait algatan anatomia konplexuak ere garatu dituzte. ETC-entziklopedia

Beherago, ura zeharkatu ondoren ahulduak iristen diren eguzki-izpiak erabili ahal izateko, klorofilaz gain, karoteno eta xantofila pigmentuak izateagatik bereizten diren **alga arreak** eta gorriak agertzen dira. ETC-prentsa

Bost liken espezie, 40 alga gorri espezie, 10 alga berde espezie eta hogei **alga arre** espezie daude inguruan. ETC-prentsa

4 ***anbar arre***

Musketa (animalia baten jariakina), zibeta (era bereko substantzia) edo **anbar arrea** (balearen hesteetako hondakin digeritu gabeak) oso maiz erabiltzen dira, kantitate txikitan, lurringintzako nahasketetan. Irene Aldasoro

5 ***antzandobi arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Antzandobi arre, Lanius cristatus. ETC-entziklopedia

6 ***europar hartz arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Europar hartz arrea, "Ursus arctos arctos" da bere izen zientifikoa, Europako hartz arrearen azpiespeziea da. Hartz arre mota hau da historikoki Euskal Herrian zabaldu dena. ETC-entziklopedia

7 ***gabai arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Kopuruan ugarienak, besteak beste, gabai handiak, **gabai arrea**, gabai balearra, Wilson ekaitz-txori txikia, marikoi isatsluzea, Sabine antxeta edota mendebal-txori mokolodia izan dira. ETC-prentsa

Gabai arrea ("Calonectris diomedea") procellariidae familiako itsas hegaztia da. ETC-entziklopedia

Madeirako, Azoreetako eta Berlengetako kostaldetan jaioak, 45-56 cm-ko luzera dute. Lehen **gabai arrearen** azpiespezietzat zuten. ETC-entziklopedia

8 ***ganga arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ganga arre, "Pterocles exustus". ETC-entziklopedia

9 ***hartz arre***

Uste dugu Pirinioetako **hartz arre** batek aske bizi behar duela, ez litzatekeela aproposa izanen nonbaitera eramatea Berria - Euskal Herria

Oraindik lotan da **hartz arre** gaztea. Berria - Harian

10 ***hiena arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hiena arrea ("Hyaena brunnea") Hyaena generoko bi espezieetako bat da. Karniboro ordenaren barruko Hyaenidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

11 ***ikatz arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Lignito edo **ikatz arrea** ateratzeko lur azaleko meategia dago han. ETC-prentsa

Aurpegira jausiko zaidan langarrak **ikatz arrezko** adreiluen zaporea izango du... jada ez lehen bezain bizia, baina betiere hiriaren bereizgarri. ETC-literatura, saiakera

Lignitoa edo **ikatz arrea** zohikatzaren eta harrikatz bituminosoaren arteko ezaugarriak dituen harrikatz mota da. ETC-entziklopedia

12 ***labezomorro arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Labezomorro arrea ("Blattella germanica") Blattellidae familiako labezomorroa da, 1,3 eta 1,6 zentimetroko luzera duena. Hegoak izan arren ezin du hegan egiten. ETC-entziklopedia

13 ***mielga arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Mielga arrea edo blainville mielga ("Squalus blainville") Squalidae familiako itsas arrain selazeoa da, metro bat luze dena, kolore arrekoa. Eremu askoko ur epeletan bizi da. ETC-entziklopedia

14 ***murgilari arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Murgilari arrea ("Aythya nyroca") "Anatidae" familiaren ahate ez-domestikoa da. ETC-entziklopedia

15 ***onddo arre*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Onddo arrea ("Boletus" - lehen "Xerocomus" - "badius") Europa eta Ipar Amerikako perretxiko jangarria da. ETC-entziklopedia

16 ***sai arre***

Eta aldi huntan, Euskal Herrian gaindi aurki ditaizken bost abere mota nahi izan dauzkigu aurkeztu: pottokak, saiak (**sai arrea**, ugatza, sai zuria), manex buru beltzak, urtxoak eta betizuak. Herria

Ordutik hona, **sai arrea** pasatu zen desagertzeko zorian zegoen espeziea izatetik hazten ari zen dezenteko populazio egonkorra izatera. Jon Alonso

17 ***sorbeltz arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Sorbeltz arre "Apus pallidus". ETC-entziklopedia

18 ***txirla arre gorrixka*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Txirla arre gorrixka ("Callista chione"). ETC-entziklopedia

19 ***ziza arre*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Ziza arrea ("Tricholoma terreum") "Agaricales" ordenako onddoa da. Perretxiko jangarri hau koniferoen basoetan hazten da Europa osoan barrena. ETC-entziklopedia

Gainerakoak: basoan onddoak, gibelurdina, saltsa-perretxikoa, kardu-ziza, belarri landua, ziza horia, galanperna, San Martin ziza, zaldun-ziza, hanka-morea, **ziza arrea**, marasmioa, azpibeltza, urbeltza, gorringoa, makal-ziza, esnegorria, esneardotsua... denetik. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arre bat (6); **arre batek** (3); **arre edo** (3); **arre emea akabatu** (4); **arre emea zen** (3); **arre eta ez** (4); **azken hartz arre** (8); **begi arre** (3); **bere astoari arre** (3); **bost hartz arre** (4); **hartz arre askatuko** (5); **hartz arre emea** (8); **ur arre** (6)

hartz arrea (4); **sai arrea** (4)

hartz arreak (4)

hartz arreen (4)

ur arreetan (4)

arre[2] **1** *interj* zaldiei eta beste zama abere batzuei aurrera egin dezaten esaten zaien hitza. ik **aida**. ant **esti 1**; **iso 1**.

Eta mingaina klaskatu eta "**Arre** , Moro" esanda abian jarri da Txamarro. Pello Lizarralde

Zuk heldu astoari buztanetik eta "**arre** ! " esan. Gotzon Garate

Azkenik, bi ardatzak beste bi makilatxorekin lotzen nituen, eta hantxe nuen gurdia! Ondoren, jakina, oihuka hasten nintzen, batean "**arre** !" eta bestean "so!". Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

Soka eskuetan, Mateori begira geratu nintzen, ez **arre** eta ez iso, aurpegia sutan. Edorta Jimenez

Emaitzek esaten dute beti **arre** edo iso!». Berria - Kirola

"Eta egon horretan pasa-ittuk orduak, mende luze iduri! ez **arre** , ez iso. Txillardegi

Originala irakurri eta iritziak jasota, **arre** edo so egin behar du editoreak: liburua argitaratu edo ez. Berria - Kultura

3 ***ez arre ez iso*** ez aurrera ez atzera.

Soka eskuetan, Mateori begira geratu nintzen, ez arre eta ez **iso,** aurpegia sutan. Korridore erdian ez arri ez **iso** puska bat egin eta gero, berriz ere ateko bidea hartuko nukeen, Josuren ahotsa ailegatu ez balitzait, atetik kanpora. Edorta Jimenez

Eta egon horretan pasa-ittuk orduak, mende luze iduri! ez arre, ez **iso** . Txillardegi

4 ***ez arre ez so***

Gosaria bukatu orduko, familia guztia zutik eta aio!, denak etxetik kanpora niri **ez arre ez so** esan gabe ere. Fernando Rey

---

arreba **1** *iz* gizonezko batentzat, senide emea. ik **ahizpa**.

Arrebak Bilboko denda batean egiten zuen lan, astelehenetik larunbatera, eta bertan bizi zen gurasoen etxean. Joxemari Iturralde

Maria **arrebatxoa** hor zegoen, eta amaren sabeletik laster irtengo zen ninia ere bai. Jokin Muñoz

-Beharbada hire **arreba** nostalgiaz zagok haren itzuleraz. Juan Garzia

Nafarroako Erratzun sortua, 14 urte zituelarik bere aitama eta **arrebekin** , Aiherra Iribarnera etorri zen, aitak Lekorneko Laffitte mindegian lana ardietsi baitzuen. Herria

- Jeneralak ordezko izendatu zuen erregeak greziarren errege ohiaren **arreba** dik emazte. Koldo Izagirre

Lehen eskola egunean arrastaka eraman behar izan omen zuen Xabier haren **arreba** nagusi Izaskunek, baina gainerakoan ez du oroitzapen txarrik. Joxerra Garzia

Etxerat-ek jakinarazi duenez, Alcala Mecoko espetxean dauden Ibai Aiensa iruindarraren **arrebak** eta lagunak eta kartzela berberan dagoen Jon Mintegiaga ibartarraren lau lagunek auto istripua izan zuten larunbatean. Berria - Euskal Herria

"-Ireki, ene **arreba** , ene laztana, ene uso zurino horrek! Anjel Lertxundi

Anaia mutua hizketan ari zen bere **arrebarekin** erotua nengoela esateko, buruaz ezezka egiten zuen onartzeko moduko tipoa ez nintzela adierazteko. Fernando Rey

Zure aitaren armadako trajea har dezakezu, eta amaren pazko kapelua eta zure anaiaren motozikleta eta zure **arrebaren** esku-poltsa, hori guztia elkarrekin jarri eta zerbait esanahiduna atera. Harkaitz Cano

Hasieran telefonoa eseki gabe utziko du, baina oso deserosoa egingo zaio, egun horietan ama ospitalean zaintzen dagoen **arrebaren** deien zain egongo delako. Iban Zaldua

Sei hilabete igarota lortu zuten anaia nafarrek **arreba** besarkatu eta musukatzea. Felipe Juaristi

Tira, nire **arrebak** bazekik, baina ez zioagu elkarri hitzik egiten, aspaldidanik. Mirentxu Larrañaga

2 *iz* emakumezkoen zenbait ordena eta kongregaziotako kideei ematen zaien izena edo titulua.

-Aita, ez dugu uste Jainkoaren maitasunarekin bat datorrenik jokaera gogor hau: **arreba** Klara hain birjina santuari, Jainkoak maite duenari, zurekin jatea bezalako gauza koxkor batean zuk baietz ez esatea; batez ere, kontuan hartzen bada zure predikuek bultzaturik utzi zituela berak munduko aberastasun eta handikeriak. Askoren artean

3 ***anai-arreba*** *(orobat **anaiarreba**) iz pl* senideak. ik **neba 4**; **neba 5**; **haurride**; **aurride**.

Azalaren azpitik denok gara **anai-arrebak** , baina gure familian alkaternarik ez dago batere. Koro Navarro

Pasaporte kontrolekoaren **anai-arrebak** . Lourdes Oñederra

Nere bi **anai-arrebak** ere eskolan baitzabiltzan, erdaralat nahitez lerratuak ziren. Herria

Barbaricôk bazituen, gutxien jota, hamabi **anai-arreba** , zeinek "Magna Môrfina" izen ironiko eta krudelaz izendatzen baitzuten haren bizilaguna. Juan Garzia

Alabaina, denbora asko barru larritasuna gainera etortzen zitzaidan eta braust jaikitzen nintzen etxe luze hartan korrika jendearen bila; ama edo izeba beti zeuden inguruan, eta eguerdian bilduko zen tropela: aitona, aita, **anai-arrebak** , txakurra, sesioak eta armonia. Pako Aristi

Orduko giro beroa, **anai-arreba** eta lagunarteko josteta xumeak; zure burua gerizatua, babestua, maitatua senditzea.. ø ba ote da bizi-zati goxoagorik? Daniel Landart

Maite zituen seme-alabei, emazteari, **anai-arreba** eta amari ez zizkien errexki emaiten deportazioko xehetasunak. Eneko Bidegain

Jexuxen gorpuzkera ikusita nork sinistu **anai-arrebak** direnik: bata, Maria, Aitaren irudia da eta bestea, Jexux, Amarena. Xabier Etxabe

Elkarrekin irten ziren **anai-arrebak** . Juan Kruz Igerabide

Fiskaltzaren esanetan, sexu erasoak neskatoak bi **anai-arrebarekin** banatzen zuen gelan bertan egin ziren. Berria - Euskal Herria

Nola borreroaren haurretako istorioetan Iratiko gizotsoa gizontzen zen egun berriarekin, hala Nabarrenkoxen gaueko amoranteak **anai-arreba** bilakatzen eguzkia nagusitzean. Aingeru Epaltza

Anai-arrebak ziren, zalantzarik ez, biak grisez jantzita, aurpegiz gazteegiak ilea elurra bezain zuri edukitzeko. Anton Garikano

4 ***bular arreba*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ez, sukalde-garbitzaile aritutako amaren alabak izan behar zuen etxandiko oinordekoaren **bular-arreba** , edo, bestela, amaren bitartez zuten nolabaiteko lotura, bi gertaerak aldi berean, baldin eta nahaste guztia ez bazen erabateko asmaketa hasieratik bukaeraraino. ETC-literatura, saiakera

5 *ezkon-arreba* ik **ezkonarreba**.

6 ***neba-arreba*** *(orobat **nebarreba**) iz pl* anai-arrebak.

"Haurtzaroko lurraldea oso garrantzizkoa da, eta baita norbera jaio eta bizi izan den hiria ere, gurasoak eta **neba-arrebak** gurekin bizi izan zirenekoa. Patxi Zubizarreta

Beste gauza bat ere ez zitzaion gustatzen: Darling andrearen lagunak umeen gelara joatea, hiru **neba-arrebak** bisitatzera. Julen Gabiria

Hala, «arraza zuria zain dezagun» eta «arraza zuriko **neba-arrebak** , lasaitasunean egon zaitezte, ez dugu barkatuko» antzeko esaldi dorpeak irakur zitezkeen. Berria - Mundua

Aita, ama, eta hiru **neba-arreba** txikiok eguteran jarri gara antxetei begira. Javi Cillero

-Jakin berri dut -sartu nintzen tartean ni- **neba-arrebak** zaretela. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aitaren arreba (7); **ama eta arreba** (8); **anai arreba** (100); **anai arreba eta** (11); **anai arreba gara** (5); **anaia arreba** (9); **anaia edo arreba** (6); **anaia eta arreba** (11); **arreba bat** (36); **arreba batek** (8); **arreba batekin** (6); **arreba baten** (6); **arreba eta ama** (5); **arreba eta biok** (6); **arreba gara** (5); **arreba hil** (7); **arreba line nirea** (5); **arreba maitea** (5); **arreba nagusi** (17); **arreba txikia** (8); **arreba txikiak** (5); **arreba txitxarra** (6); **arreba zaharrena** (6); **beraren arreba** (5); **bere arreba** (50); **bi arreba** (9); **ene arreba** (31); **geure arreba** (6); **gorputzeko gure arreba** (5); **gure arreba** (24); **haren arreba** (29); **hauen arreba** (5); **hire arreba** (14); **neba arreba** (13); **nire arreba** (39)

---

arrebaorde *iz* gizonezko batentzat, amaren edo aitaren, baina ez bien, alaba.

Batek adulterio egiten du lagun hurkoaren emaztearekin, beste batek harreman gaitzesgarriak ditu errainarekin, eta beste batek bere **arrebaordea**, aitaren alaba, bortxatzen du. Elizen arteko biblia

Ez dit deitzen, baina Tomen elkarrizketaren azkena entzuten dudalarik, harriturik geratzen naiz Burlington-era iristen atzeratu egingo garelako berriari haren **arrebaordeak** emandako erantzun suminduarekin. Oskar Arana

Hau da nire **arrebaordea** eta hauek bere bi umeak. Anton Garikano

Sonal **arrebaordearen** jaiotzarekin gauzak gaizkiagotu egin ziren. Gotzon Garate

Neuk ere berdin pentsatzen dut, nahiz Line **arrebaordea** dudan bakarrik. Eskarne Mujika

---

arrebatasun *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)* **1** *iz* arreba izatearen nolakotasuna.

Kanonizatu nahi dutenek normalean beharra izaten dute bere inguruan nolabaiteko sistema arautzaile -eta "auraz" beterikoa- sortzeko, goraipatu duten, artelan, idazle, artista edo musikariarekin nolabaiteko anaitasuna sortuko bada -gutxitan esan daiteke sortzen dela ahizpatasuna edota **arrebatasuna** -. ETC-prentsa

Eta baietz diozu zeure artean, hala izango dela, seguru asko emaztetasun amatasun **arrebatasun** alabatasun traumatiko ezin irentsizko batek bultzatu dituela emakumeok errusiar oinezkoen artera bildu, eskaileretan behera infernu atarira jaitsi, bagoian sartu eta sabel bueltan loturik zuten zartagailuari bizia emateko. ETC-prentsa

2 ***anai-arrebatasun*** anai-arrebak izateko nolakotasuna.

Gehienetan zertan zeutzan sobera zehaztu gabe aldarrikatzen ziren ideal handi haiek: askatasuna eta elkartasuna, bakea eta maitasuna, gizakien **anai-arrebatasuna** ... ETC-literatura, saiakera

Maurak ez du arazorik sozialdemokraziaren ondare ideologikoaren zenbait atal goresteko: "Sozialdemokraziaren elkartasun eta **anai-arrebatasun** asmo hori indarrean dago. ETC-prentsa

Ez digu uzten herritarroi libreki erabakitzen interesatzen zaizkigun gaietan, askatasuna, berdintasuna eta **anai-arrebatasuna** nortasun ezaugarri izango dituen jendarteak eraikitzerakoan, Giza Eskubideen errespetu zorrotza zainduko den horietan. ETC-prentsa

Jarrai dezagun bada izaten, jarrai lanean, jarrai lankidetzan, jarrai gure artean eztabaidatu beharrekoak eztabaidatzen, jarrai kide izaten, jarra **anai-arrebatasunean** desberdin izaten, jarrai ikertzen, jarrai ikasten, jarrai sortzen, jarrai transmititzen, jarrai eraikitzen, jarrai osatzen. ETC-prentsa

Zerekiko berdin, ordea? Erantzuna, gordinki eta bortizki, samur-samurra: zintzoki, denok halabeharrez, gizonki, franko (franko-godo uler bedi), hori bai, askatasunez eta **anai-arrebatasunez**, hau da, Égalité, Liberté, Fraternité. ETC-prentsa

Eta Herria bizi dadila jendearen **anai-arrebatasuna** eta askatasuna aldarrikatuz beti! ETC-prentsa

Tuaregen hizkuntzaz jabetuz eta kultur-ondarea ezagutuz, Ribât Essalâm "Bakearen Lokarria" ekimena sortu dute, egun guzietako engaiamendua, izpiritual **anai-arrebatasuna** kristau eta musulmanoen artean bultzatzeko. ETC-prentsa

3 ***neba-arrebatasun*** neba-arrebak izateko nolakotasuna.

Aitzitik, horrek, gizakien arteko **neba-arrebatasuna** eta justizia izpiritua zabaldu eta gizartearen harmonia orokorra bermatzen du. Andres Urrutia

---

arreberdi *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* arrebaordea.

Resurreccionek behintzat, helduaroko gutunetan, berdin tratatzen zituen arrebak, **arreberdiak** zein anaierdiak, guztiei ere arreba edo anaia izena emanez. ETC-literatura, saiakera

Bion **arreberdia**, Ileana Cabra Joglar (goitizenez "PG-13"), taldeko emakumezko abeslaria da. ETC-entziklopedia

---

arrega *iz* marrubia.

Arrega basa batzu bildu. Herria

---

arregatu, arrega(tu), arregatzen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* du *ad* ureztatu.

Bestalde arto mozkinen goitiarazteko dirua emana izan da **arregatzeko** ur eskasik ez ziren eskualdetan. ETC-prentsa

---

arreglatu ik **antolatu**; **konpondu**; **prestatu**.

---

arreglo *iz* musika piezez mintzatuz, moldaketa.

Herri tradizioan oinarritzen gara, eta adinekoei entzundakoa, **arregloak** eginda, gaurko publikoari eskaintzen diogu. Berria - Kultura

Batzuk sofan eserita, besteak lurrean, zein kantu grabatuko lituzketen esaten aritu ziren, zein soinurekin, zein efektu erabiliko zuten, **arregloak**, kolaborazioak eta abar. Unai Iturriaga

---

arrelepo *adlag* olgeta gisa, beste batean bizkar gainean igota. ik **arretxiko**.

Ikasle pilo bat ari zen zerrendak irakurtzen, multzoan denak, atzeko batzuk aurrekoen gainean **arrelepo** jartzen hasiak. Joseba Sarrionandia

---

arremetu, arreme(tu), arremetzen du *ad* giltzadurez eta kidekoez mintzatuz, bola itxurako atala aho itxurako atalean sartu; buru edo mutur bat dagokion zuloan sartu. ik **ahokatu**.

Arremetu egiten dira. Josu Zabaleta

---

arren[1] **1** esanguraren aldetik *nahiz, ba... ere*-ren baliokide den hitza (aditz ez-jokatuen partizipio burutuarekin edo *-(e)n* menderagailua hartu duten aditz jokatuekin).

Kalitate handiko jokalariak izan **arren**, Aunak ez du bizi denboraldiko une onena. Berria - Kirola

Zergatik hau, **arren**, ene Jaungoiko? Imanol Unzurrunzaga

-Zein tratu, **arren**! -negarraren ertzetik esan zuen, ozenago ezin. Edorta Jimenez

Hala ere, gorputza ez duzu horrela zaintzen, ihar-ihar eginik eta zarpailtsu jantzirik, gainerakoan errege bat dirudizun **arren**. Juan Kruz Igerabide

Susmatu **arren** ez nuela bat bera ere aurkituko, D'Annunzioren zerbait non aurkituko ibili naiz apal batetik bestera. Anjel Lertxundi

Frantses erakasleak, eta bereziki erakasle frantsesak, merezimendu handiz eta sakonki testuak aztertzen ditu, eta jastatzen ere, analisia tekniko, zientifiko eta estrukturalistak erabili **arren**. Piarres Aintziart

Prezioa garesti iruditu **arren**, zalaparta handirik gabe, bost txartela utzi nizkion. Itxaro Borda

Hanley sarjentua gibelean izan **arren** betiere, non-zer harrapa, itzuli egin baitzen gure heroi txapelduna, hari aurpegi eman eta odola mehetzeko gauza zen bakarra. Mirentxu Larrañaga

Asko lagunduko digu gerora, hasiera hartan bere aulkiak uzteko prest egon ez **arren**. Pako Aristi

Tutik ulertu ez **arren**, berehala ohartu naiz elkarri biraoka zihardutela. Jon Arretxe

Bere buruari aitortze hutsa sarkasmo garbia izan **arren**, komediantearena izan zen agian zailena. Harkaitz Cano

Ea Labartzatik urrun egon ez **arren**, ez nintzen bertan inoiz izan. Txillardegi

Ondoren, koadernotik hartu zuen **arren**, inoiz ikusitako orririk zuri eta hutsena iruditu zitzaion haren aurrean paratu zen. Eider Rodriguez

'Garaitu **arren**, ez dugu zabartu beharrik,' esan zuen batek arrainaren bakardadearekin. Joseba Sarrionandia

Beste gaitasun bat ere erakusten du hor burmuinak: objektu baten identifikazioari eustekoa, hain zuzen etengabe aldatu **arren** pertzepzioa espazioan eta denboran. Juan Garzia

Koadrilan bakarra nintzen **arren**, nik bezala, hamairu-hamalau urteko ume askok egiten zuen lan orduko fabriketan. Jon Maia

Izan ere, kontsonante horien ekoizpenean hersketa bat gertatzen den **arren**, irteerabide aski irekiren bat ere izaten dute hersketak irauten duen bitartean. Lourdes Oñederra

2 *lok* bada.

Geroztik **arren** ez ote gare bakan baizik erdaraz mintzatu behar? Xipri Arbelbide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

adierazi arren (18); **agertu arren** (39); **agertu ez arren** (12); **agindu arren** (12); **ahaleginak egin arren** (14); **ahalegindu arren** (20); **aipatu arren** (12); **aldatu arren** (22); **ari den arren** (18); **ari diren arren** (12); **aritu arren** (44); **arren bere** (14); **arren egin** (15); **arren ere** (12); **arren erredakzioa** (14); **arren eskatzen dizuet** (11); **arren eskatzen dizut** (31); **arren eta arren** (63); **arren eta arren** (63); **arren ez da** (11); **arren oraindik** (14); **arren otoi** (24); **asko izan arren** (18); **atera arren** (12); **badagoen arren** (11); **badauden arren** (15); **bakarra izan arren** (12); **bazekien arren** (15); **bera izan arren** (12); **bizi arren** (24); **bota arren** (12); **dakien arren** (13); **dauden arren** (86); **dela aitortu arren** (12); **dela jakin arren** (16); **dela onartu arren** (15); **desberdinak izan arren** (12); **dezakeen arren** (11); **dioen arren** (21); **dion arren** (35); **dioten arren** (35); **direla esan arren** (11); **dirudien arren** (96); **ditudan arren** (23); **ditugun arren** (18); **dituzten arren** (103); **duela esan arren** (11); **duzun arren** (15)

egin diren arren (12); **egin duen arren** (27); **egin ez arren** (29); **egin zuen arren** (21); **egin zuten arren** (14); **egiten zuen arren** (18); **egon den arren** (14); **egon ez arren** (60); **eman arren** (71); **eman ez arren** (11); **ematen duen arren** (11); **entzun arren** (11); **erabili arren** (16); **erakutsi arren** (22); **eraman arren** (18); **eskatu arren** (42); **etorri arren** (17); **eutsi arren** (11); **ez dagoen arren** (47); **ez dakidan arren** (12); **ez den arren** (151); **ez diren arren** (44); **ez dituen arren** (23); **ez dudan arren** (25); **ez duen arren** (98); **ez dugun arren** (11); **ez duten arren** (57); **ez eduki arren** (11); **ez egon arren** (37); **ez izan arren** (202); **ez jakin arren** (28); **ez naizen arren** (11); **ez nekien arren** (14); **ez nintzen arren** (11); **ez nuen arren** (20); **ez zegoen arren** (14); **ez zekien arren** (12); **ez zen arren** (55); **ez zion arren** (11); **ez zituen arren** (14); **ez zuen arren** (66); **ez zuten arren** (33); **ezagutu arren** (18); **ezarri arren** (12); **ezberdinak izan arren** (14); **gabe egon arren** (11); **galdu arren** (82); **garen arren** (16); **gaztea izan arren** (17); **gelditu arren** (12); **genuen arren** (20); **geratu arren** (17); **gertatu arren** (22); **ginen arren** (14); **gutxi izan arren** (14); **handia den arren** (12); **handia izan arren** (24); **hartu arren** (42); **hasi arren** (22); **hasi zen arren** (13); **heldu arren** (13)

ibili arren (56); **igaro arren** (13); **igaro diren arren** (14); **ikusi arren** (35); **ikusi ez arren** (12); **irabazi arren** (50); **iragarri arren** (17); **iruditu arren** (30); **izan arren ez** (17); **izan daitekeen arren** (23); **izan daitezkeen arren** (13); **izan den arren** (31); **izan diren arren** (22); **izan duen arren** (17); **izan duten arren** (12); **izan ez arren** (130); **izan zen arren** (48); **izan ziren arren** (14); **izan zituen arren** (11); **izan zuen arren** (23); **izango den arren** (22); **jaio arren** (16); **jakin ez arren** (24); **jardun arren** (18); **jarraitu arren** (15); **jarri arren** (17); **jaso arren** (32); **jo arren** (28); **joan arren** (30); **jokatu arren** (70); **jokatu ez arren** (11); **kanpo egon arren** (14); **lortu arren** (30); **lortu ez arren** (13); **lukeen arren** (14); **nahi izan arren** (13); **nengoen arren** (27); **nion arren** (22); **nituen arren** (24); **ona izan arren** (15); **otoi arren** (31); **pasatu arren** (13); **pentsatu arren** (21); **saiatu arren** (57); **saiatu zen arren** (11); **sartu arren** (17); **sortu arren** (15); **txikia izan arren** (18); **ukatu arren** (12); **ulertu ez arren** (17); **urrun egon arren** (11); **urte izan arren** (12); **uste arren** (18); **uste izan arren** (14); **utzi arren** (34); **zaidan arren** (14); **zaien arren** (12); **zaila den arren** (11); **zaila izan arren** (19); **zaion arren** (29); **zela jakin arren** (15); **zeuden arren** (32); **zeukan arren** (20); **zidan arren** (23); **zien arren** (15); **zioten arren** (38); **zirudien arren** (27); **zitekeen arren** (12); **zituzten arren** (46); **zitzaidan arren** (29); **zitzaion arren** (35); **zizkioten arren** (11)

---

arren[2] **1** zerbait eskatzen denean erabiltzen den hitza. ik **mesede 10**; **otoi**.

Baina hurrengoan ez esan, **arren**, irri egiten ahaztu zaizula. Joan Mari Irigoien

Banekien nolakoak ziren neska haiek beren misterioekin, eta orduan behin eta berriz erregutu nien, **arren**, lagun ziezadatela. Fernando Rey

Senideok, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean, **arren** eskatzen dizuet: bat etor zaitezte guztiok eta ez bedi izan zatiketarik zuen artean. Elizen arteko biblia

Orain, beraz, begiko baldin banauzu, utzidazu, **arren**, anaia ikustera joaten. Elizen arteko biblia

Nire Axenario ttiki kuttuna, **arren**, izan zaitez maittagarria eta zoaz errotara gurin libra baten bila. Itziar Otegi

Haiengana jo nuen, galdezka, ea dealera nor zen, drogan zer demontre sartu ote zuen jakin nahi nuela, lagundu behar zidatela, **arren**, baina ez zidaten erantzun argirik eman nahi izan. Iban Zaldua

-Utzidazu, **arren**, zeure pegarratik ur tanta bat edaten. Jose Antonio Mujika

Modu onez, **arren** eta **arren**, alabatxoa ongi hartzeko eskatu nion. Gotzon Garate

Eskatuko nizuke, **arren**, gauzak ez horrenbeste errepikatzea. Karlos Linazasoro

Horregatik, **arren**, eskatzen dizuet ez ezazuela kontuan hartu berak esandakotik ezer, bere logikan bera ez baita eskua besterik izan, burua beste nonbait zegoen, eta dago. Koldo Izagirre

Baina, **arren**, ez ezak esperantza handirik egin. Anton Garikano

• **2** *iz* eskaria.

Egoera gaiztoa kulpante, han gelditu behar izan zuen Benitok, eta Eskolastikak: "Eskerrak, Jaunak nire **arrenak** entzun dituen: ez diot alferrik eskatu!". Pello Zabala

Eta ez itsasotik hirira horniak sartuko ziren beldurrez, zeren horiek, behar zenerako, beti urri izango baitziren, baizik eta Alentejoko herrietara laguntza-**arrenak** eramango zituzten mezulariek setioa txuliatu zezaten eragozteko. Jon Alonso

Nola ez, han zeuden guztiak, "zorriak hazitzen eta gosea padezitzen", eta hain bizi ziren **arrenean** non musuzapi bat baino ez zuten guztientzat. Iñigo Aranbarri

Hala dio egileak berak amaieran; esaten digu, gainera, anaien eskaera eta **arrenei** eta nagusien mandatuari men eginez idatzi duela liburua. Askoren artean

3 ***arren egin*** arrenka eskatu.

Joana hilerri hitsera eramana izan aurretik, **arren egitera** etorri zitzaion Nikolas, Jean Toutmouillé-ren konpainian. Juan Garzia

-Joan eta esaiok Basurtokoari zuen medikua askatzegatik **arren egin** ahal duena egiteko baina, adi! Edorta Jimenez

-Maguggia - **arren egin** zion-, pentsa ezazu pittin bat. Koldo Biguri

4 ***arren eskatu*** arrenka eskatu.

Eta zuei, ene andreoi, **arren eskatzen** eta kontseilatzen dizuet, bizi zaiteztela beti biziera eta pobretasun txit santu horietan. Askoren artean

Hona zer jakinarazi zion mezulariak Dionisiori: arren eta **arren eskatzen** zion Arkitasek aske joaten uzteko Platon. Jon Muñoz

Cecily, **arren eskatzen** dizut, ez zaitez eror zoritxarreko gazte horren balizko kualitate azalekoen mendean. Antton Olano

Arren eta **arren eskatu** zien. Karlos Zabala

Poetak **arren eskatu** zion berekin solasta zedin apur batez. Juan Garzia

5 ***arren eta arren***

-Arren eta arren, karitatez eskatzen dizut, esaten dizudan bezala erantzun diezadazula oraingoan. Askoren artean

Zerbait jakin dezakeela uste duenari esateko eskatzen diot, **arren eta arren.** Iñaki Mendiguren

Belauniko, **arren eta arren**, ur xorta baten edatera uzteko eskatu zuten, mintzatzeko indarrik ere gabe. Eneko Bidegain

Baina haiek **arren eta arren** eskatu zioten: "Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu". Elizen arteko biblia

Enbaxadako gizon batek ekarri du Hondarribira Leire: **Arren eta arren** barkatzeko eta, esplikazioak eskatu dituztela; telefonoa ere eman didate... Pablo Sastre

Peterren sorbaldara joan zen hegaz, eta **arren eta arren** hasi zitzaion, baina Peterrek beste alderantz begiratu zuen. Julen Gabiria

Eta ulertu egin nahi zuen, **arren eta arren**. Mirentxu Larrañaga

arrendatu ik **errendatu**; **errenditu**.

---

arrendu, arren(du), arrentzen *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* du *ad* arren egin, erregutu.

Hurrena aitarengana joan zenean oso aztoratua bilatu zuela esan zidan, bere onetik aterata, eta bere aurrean anaiaren izenik ez gehiago aipatzeko **arrendu** ziola, hura beretzat hila zela betiko. ETC-literatura, saiakera

Isabel Celaa parlamentari sozialistak, EHUko ikasgeletan "beldurra eragotzi eta adierazpen askatasuna bermatzeko berehalako neurriak hartzeko" **arrendu** dio Anjeles Iztuetari. ETC-prentsa

---

arrengura ik **arrangura**.

---

arrenguratu ik **arranguratu**.

---

arrenka *adlag* eskatzen, otoitz eginez.

Hasieran ez zuen nahi, aurreko bisitaldiko nire zaputzaldia gogoan, baina, otoika estreina eta **arrenka** gero, lortu dut halako batez Paveseren borondatea beratzea. Anjel Lertxundi

Baina, berez, errogatibak (hitzak dioenez, latineko rogare aditzetik baitator, eskariak **arrenka** egitea, alegia), eskariak behar jakin eta publikoren baten alderakoak izan ohi ziren. Pello Zabala

Haietako batzuen aurrean belaunikatu eta **arrenka** hasi zen, erreguz eskatu zien egin izan zituen bekatuetatik libratzeko. Oskar Arana

Italiako jaun guztiek **arrenka** eskatu zuten enperadoreak lege bat egin zezala gehiegikeria lotsagarri hura zuzentzeko .150. Iñaki Iñurrieta

Gure protagonistengana itzultzeko tenorea da, zeren badira minutu batzuk egongelako atearen aurrean daudela, biak **arrenka**, batak besteari lehena sartzeko eskatzen. Jose Morales

Maitea, aditu, arren... lehen eta azken aldiz eskatuko dizut **arrenka**... egizu nigatik, hartu urtebetetze-egunero, nork bere buruaz pentsatzen duen egun horretan, hartu arrosak eta ipin itzazu loreontzian. Eduardo Matauko

Nire maitalea izan ondoren, onar ezazu, **arrenka** diotsut, laztana, nirekin emaztearena egitea, eta hartara ozen esan ahal izango dut hain irrikatsu maite dudan plazeraren atsegin guztiak gozatu ditudala zure jainko-besoetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hinbadek amaitu zuelarik, Sinbadek **arrenka** eskatu zion lehengo hitz haiek errepikatzeko. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrenka ari** (11); **arrenka eskatu** (3); **arrenka eskatzen** (4); **arrenka galdatzen** (3); **arrenka hasi** (3)

---

arrenkura ik **arrangura**.

---

arrenkuratu ik **arranguratu**.

---

arreo **1** *iz* ezkonsaria.

Arreo-gurdi bat Zarautzen, Bigarren Mundu Gerraren hondarren gainetik... Iñigo Aranbarri

Txabola erre baino lehen ere, Taubek, errabinoaren alaba ezkonduak, maindire batean bildu zuen **arreoa**, surik sortuko balitz, jakin orduko salbatu ahal izateko. Koro Navarro

Horretaz landa, **arreoa** prestatzen zuen, bapo lo egin, zaparrada lako gutunak idazten zizkion senargaiari, eta, arauen aurka, berriketan hasten zen parean harrapatzen zituen guztiekin. Juan Garzia

2 *(corpusean **arrio** soilik) iz* zaldien uhaleria edo arnesa.

Zamarien **arrio** eta hanka-estalkietan ez zen apaingarririk, ez urre edo harribitxien zohardurarik. Agustin Otsoa

---

arres *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* ardia.

Edo **arres** zonbaiten aitzinean, haier so eta so. ETC-literatura, saiakera

Eta hola Aphanize gaintian ez zen haboro arres hiltzerik. ETC-literatura, saiakera

---

arreska ik **arrexka**.

---

arreske **1** *adlag* animalia emeez mintzatuz, ume egiteko grinaz egon edo ibili. ik **araldi**; **iel**; **irausialdi**; **susara**.

Nire aurpegiak **arreske** dabilen orein emearena ematen zuen, arrak harrapatu duen momentuan. Karlos Zabala

Izan zitekeen tximua, edo txoria, edo agian basakaturen bat, auskalo zer, **arreske** edo herio-suhar orroka, ezin ba jakin... Joxe Austin Arrieta

2 irud/hed

Arreske dagoen neska inoxente baten aurpegitxoa jartzen zuen, ikusi gabe ezin sinetsi, eta harekin joan nahi zuela esaten zion Fernandori, intziri eginez kasik negar-zotinka. Karlos Zabala

3 ***arreske egon***

Arreske dagoen neska inoxente baten aurpegitxoa jartzen zuen, ikusi gabe ezin sinetsi, eta harekin joan nahi zuela esaten zion Fernandori, intziri eginez kasik negar-zotinka, zure premian nago Fernando, estal nazazu, babes nazazu, bete nazazu, sar iezadazu hondo-hondoraino, korri zaitez nire barrenean. Karlos Zabala

4 ***arreske ibili***

Nire aurpegiak **arreske dabilen** orein emearena ematen zuen, arrak harrapatu duen momentuan. Karlos Zabala

---

arresta ik **arrasta**[2].

---

arrestatu[1], arresta(tu), arrestatzen **1** du *ad* atxilotu. ik **arrastatu**[2].

Irurtzungo Haizpean **arrestatu** zuen Rafael Marotok Uritz brigadierra. Txillardegi

Lagun zonbait **arrestatu** dituzte azken egun hautan eta beldur naiz guardia zibilek zerbait dakitela, zer xuxen kalkulatu ezin badut ere. Joseba Sarrionandia

Baigorriko abertzale guziak miatuak edo galdezkatuak dira, Bidart famili osoa **arrestatua** da herritarren aintzinean... segur dira Filipek antolatu ekintza bat dela. Herria

Immanuel kokaguneari ustez erasoa egitera zihoazen bi palestinar ere **arrestatu** zituen. Berria - Mundua

2 (era burutua izenondo gisa)

Ondotik auzitegirat gomitatua izan da eta gauza hori ikusiz Oztibarreko zortzi herrietako auzapezek igorri dute mozione bat Prefetari galdeginez desmartxa hori geldi araz dezan eta erranez **arrestatu** horren ber kasuan direla han ziren laborari guziak. Herria

Jende askori gogoan iltzatuta geratu zitzaion maiatz hartako zortzigarrena, Bilboko Vista Alegreko zezen plaza 400 **arrestatu** ingururentzat gau bateko ostatu izan baitzen. Jokin Urain

---

arrestatu[1], arresta(tu), arrestatzen **1** du *ad* atxilotu. ik **arrastatu**[2].

Irurtzungo Haizpean **arrestatu** zuen Rafael Marotok Uritz brigadierra. Txillardegi

Lagun zonbait **arrestatu** dituzte azken egun hautan eta beldur naiz guardia zibilek zerbait dakitela, zer xuxen kalkulatu ezin badut ere. Joseba Sarrionandia

Baigorriko abertzale guziak miatuak edo galdezkatuak dira, Bidart famili osoa **arrestatua** da herritarren aintzinean... segur dira Filipek antolatu ekintza bat dela. Herria

Immanuel kokaguneari ustez erasoa egitera zihoazen bi palestinar ere **arrestatu** zituen. Berria - Mundua

2 (era burutua izenondo gisa)

Ondotik auzitegirat gomitatua izan da eta gauza hori ikusiz Oztibarreko zortzi herrietako auzapezek igorri dute mozione bat Prefetari galdeginez desmartxa hori geldi araz dezan eta erranez **arrestatu** horren ber kasuan direla han ziren laborari guziak. Herria

Jende askori gogoan iltzatuta geratu zitzaion maiatz hartako zortzigarrena, Bilboko Vista Alegreko zezen plaza 400 **arrestatu** ingururentzat gau bateko ostatu izan baitzen. Jokin Urain

---

arrestatze *iz* ik **arrastatze**[2].

Etxeko **arrestatzea** ezarri diote gizon bati Txinan, hiesari buruzko informazioa zabaltzeagatik. Berria - Gaiak

Egun etxeko **arrestatze** baten pean dago Rios Montt. Berria - Mundua

---

arrestatzepean *adlag* atxilo.

PAN Palestinako Aginte Nazionaleko presidente Jasser Arafatekin izan zituen gorabeherak zirela eta etxeko **arrestatzepean** jarri zuten maiz. Berria - Mundua

---

arresto ik **arrestu**.

---

arrestu *(orobat **arresto**) iz* atxiloketa. ik **arrastatze**[2]; **arrestatze**; **atxikitze 2**.

2000 urtean Lasarten izandako istripu bat dela eta, Donostiako zigor epaitegiak obrako lau arduradunak zigortuko ditu: hiru hilabeteko kartzela zigorra eta zazpi asteburuko **arrestua** bete beharko dituzte. Berria - Ekonomia

Arrestoak harreman guztiak haustea esan nahi zuen; baina, aldi berean, adierazten zuen Revillarena konpontzeak berriro harremanetan jartzea ekar zezakeela. Berria - Harian

---

arreta **1** *iz* zerbaitetan jartzen den ohartasuna. ik **ardura**[1]; **kasu**[2].

Nafarkaria-ko arduraduna izan zen hainbat urtez eta egun Berria-ko kazetaria da, ingurumen arloari **arreta** berezia eskainiz. Edurne Elizondo

-Bai, ni hizketan ari nintzen eta zuk niri **arreta** handiz entzuten zenidan. Gotzon Garate

Arreta faltarena ez zen lehen minutuen gaitza bakarrik izan. Berria - Kirola

Hori esanik, Peneloperi keinuak egin zizkion begiez, baina hark ez zuen ezer ikusi, Ateneak beste norabait bideratu baitzion **arreta**. Juan Kruz Igerabide

Nik, ordea, Patxi maisuak bezala, Jainko errukitsu bat sinesten diat, eta ez Jainko justiziero bat -eta, geldiune bat egiten zuela, **arreta** handiz galdetu zidan. Joan Mari Irigoien

Ez behintzat behar den **arretarekin** eta antzearekin erabiltzen badira. Edorta Jimenez

Arnold banan-banan eta **arretaz** ari zen gutunak irakurtzen. Koro Navarro

Hasieran, burzoroa zela-eta, ez nion **arreta** handirik jarri, baina gero argibideak emateko eskatu nion: itxoin zenbat? Fernando Rey

Gehiegizko **arreta** horrek ez zion pentsatzen utzi, eta zortzi pelota galduz, partida saldu zuen. Berria - Kirola

Gurasoak izutu besterik ez zituen egin nahi, norbaiten **arreta** erakarri nahi zuen. Koldo Izagirre

Diskrezio hori eskertzen dio, **arreta** bereziz zaintzea, baina aldi berean uretatik ateratako beste edozein narrasti umezurtz zainduko lukeen prestutasun arruntarekin. Harkaitz Cano

2 ***arreta eman***[1] dio *ad* arreta jarri.

Bertan txirtxilatuta geratu zela langile bat; subkontrata bateko enplegatua seguru asko, segurtasunik gabeko kontratuarekin ariko zena eta bere laneko segurtasunari behar adinako **arreta eman** ez ziona. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zuen halakorik egin; hala, ordubeteren buruan, haren esaldi esplizituegi eta etengabeen zaparradak harrapaturik eta aldi berean zanpaturik, ia pott eginik hainbat gauzari batera **arreta eman** beharraren ondorioz. Xabier Olarra

Norbera testu trinkoak exigitzen duen **arreta emateko** prest egotea dela baldintza bakarra. Jon Alonso

Itxurari ere, ilobak bezala, **arreta ematen** zion: azala beltzarana zeukan, larmintza leuna bere adinerako, eta ile bakoitza bere tokian. Migel Angel Mintegi

Nolanahi ere **arreta emanen** diot, Madeleinek dioen bezala azken aldiz entzun behar dudalako diskoa: oso zaharra da; zaharregia, probintziarako ere; alferrik ibiliko nintzake haren bila Parisen. Monika Etxebarria

3 ***arreta eman***[2] du *ad* arreta piztu.

Esan zion herriak **arreta emango** zion norbait behar zuela. Bego Montorio

Arreta eman zidan, ezen orrialde bikoitiak (demagun) 40.514 zenbakia zeraman eta bakoitiak, hurrengoak, 999. Juan Garzia

Geroago, laster ulertu nuen begirada erakargarri hori, aldi berean inguratu eta biluzten duena, limurtzaile petoaren begirada hori, zurekin tratua duen edozein emakumeri jotzen diozula, **arreta ematen** dizun edozein neska saltzaileri. Eduardo Matauko

4 *arreta eman*[3] du *ad* artatu, zerbitzua eman.

Laguntza premian diren zahar eta eriei **arreta ematea** du xede Espainiako Gobernuak onartu duen lege egitasmoak. Berria - Harian

Zenbait aurrerapauso egin ditugu, baina talde batzuk kanpoan gelditzen dira beti, eta, beraz, erakundeek lehentasunezko **arreta eman** behar diete. Berria - Harian

5 *arreta eskaini*

68 Esakune **honi arreta** eskaini behar zaio, garrantzi handikoa baita. Ibon Uribarri

Armei ere **arreta eskaintzen** die. Xabier Montoia

Benetan diotsuet: kultura urri eta pobre batekoa izan ezean, ez du merezi Leibnizbarrutiaz kezkatzea, Oximoroni **arreta eskaintzea**. Jon Alonso

Haren esanetan, Iberdrolak sare elektrikoa ez du behar bezala zaindu eta itzalaldiak iraun zuen bitartean ez zien beharrezko **arreta eskaini** bezeroei. Berria - Harian

Atzoko entrenamenduan geldikako jokaldiei aparteko **arreta eskaini** zien entrenatzaile mexikarrak eta gaur egun futbolean lortzen diren golen %40 inguru geldikako jokaldietan iristen direla gogorarazi zuen. Berria - Kirola

Haren arabera, arnasa hartzeko arazoei ez zaie behar beste **arreta eskaintzen**. Berria - Gaiak

Lagunen Etxeak izena du proiektuak, hitz horiek laburbiltzen dutelako ekimenaren funtsa: "Haurrei **arreta eskaintzea**, gurasoek familiaren eta lanaren esparruak uztartzeko aukera izan dezaten». Berria - Euskal Herria

Pasaportea eskatu ziguten tokietan, poliziek zein ostalariek errutinazko **arreta eskaini** zioten bai amonaren pasaporteari, baita neureari ere. Anjel Lertxundi

Ezinbestekoa da ingurumenari lotutako gaietan heziketa lana burutzea, bai belaunaldi gazteei bai helduei zuzendurik, eta behar duen **arreta eskaintzea** pribilegio gutxien duen biztanleriaren sektoreari. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bere ardura ugariek ez zioten betarik utzi testuari merezi zuen **arreta eskaintzeko**, baina bi ideia funtsezko bederen atera ahal izan zituen garbi, eta haiexek praktikan frogatzen saiatu behar genuen. Juan Garzia

Geure aurkezpenak egin zituzten, geure biografien alderdi ilunenei aparteko **arreta eskainiz**. Karlos Linazasoro

6 *arreta galarazi*

Eta okerrago: **arreta galarazten** du. Juan Garzia

Auto baten hotsak **arreta galarazi** zion. Fernando Morillo

Isaacs hara eta hona ikusteak **arreta galarazten** badio ere, hitzak tentuz aukeratzen saiatzen da. Oskar Arana

Burutazio hark **arreta galarazi** zidan, eta Carlosek beste sarde bat hartzea lortu zuen. Bernardo Atxaga

7 *arreta galdu*

Ikasturtea hasi zenetik, behin baino gehiagotan ikusi duk jarrera **arreta-galdu** horrekin, hire ikasgaiaren aurrean erabateko interes falta argiro erakutsi nahi balu bezala. Jokin Muñoz

-Gustuko ditut ahabia-pastel ederrak, edo limoi-merengezko pastel gozoak, edo adibidez... -gaiarekiko **arreta galdu** zuelarik, ahotsa apalduz joan zitzaion. Mirentxu Larrañaga

Atsedenean **arreta galdu** dute jokalariek, erlaxatu egin dira eta Premiership-ean ezin dugu halakorik egin. Berria - Kirola

Zuk hozteko arriskua saihestuko duzu eta nik ez dut **arreta galduko**. Migel Angel Mintegi

Baina gau jakin hartan, **arreta galdu** nuen. Mirentxu Larrañaga

Ez nekien ziur, eta hura gogoratu nahian **arreta galduta** -bederatzi izar, bederatzi lehen ostiralak, bederatzi urrenak; bederatzi beti-, sentimendu ilun bat agertu zitzaidan: aita lehenbailehen hil zedin desio nuela. Ramon Saizarbitoria

-Aditu, aditu -esan zuen Tellagorrik Martin ukondoan joaz, mutila **arreta galduta** baitzebilen. Koro Navarro

Jende asko zebilen atzo atzera-aurrera, eta gela txikiak dira: ez da zaila **arreta galtzea**. Anjel Lertxundi

8 *arreta handiz*

Hala eta guztiz ere, polizia **arreta handiz** ari da zaintzen bai mugetako pasabideak eta bai portuak eta aireportuak". Jon Muñoz

Nik, ordea, Patxi maisuak bezala, Jainko errukitsu bat sinesten diat, eta ez Jainko justiziero bat - eta, geldiune bat egiten zuela, **arreta handiz** galdetu zidan -: Baina hik ba al dakik zer den dogmakeria? Eta Jainko justiziero bat...? Joan Mari Irigoien

Berak eman dio gure testuari, **arreta handiz**, azken begirada. Patxi Ezkiaga

Eskuak bolantean, begiak errepidean, isil-isilik entzun zidan, ezpainak hozkaturik eta **arreta handiz**. Anjel Lertxundi

Murrow AEBetan oso ezagun bilakatu zen 50eko hamarkadan, haren saioa 40 miloi lagunek jarraitzen baitzuten **arreta handiz**, batez ere Joseph McCarthy senatariarekin tirabirak suertatu ondoren Berria - Kultura

Haren esanetan, Espainiak une itxaropentsuak bizi ditu ETAren su-etena dela eta: "Une honek itxaropena handitzen du eta Europako Batzordeak **arreta handiz** jarraituko du prozesu guztia» Berria - Harian

Hura topatzeko egin ziren ikerketak **arreta handiz** jarraitu zituen, eta beste gizon batekin alde egina zelako zurrumurrua heldu zitzaiolarik, hunkitu egin zen. Patxi Zubizarreta

Ez zuen susmorik ere inor begira izan zezakeenik, eta **arreta handiz** egiten zuen bere egiteko hura. Josu Zabaleta

Ikara kolkoan eta **arreta handiz** itzuli dira Croixera, nazioarteko izaera humanitarioa duen salbamen-altzora. Anjel Lertxundi

Gainera, badakik nolako **arreta handiz** zaintzen dudan herorrek utzitako metraileta, Peppone jauna. Koldo Biguri

Funtsezko alde bakarra, iturriei zegokien: "polizia", egileak **arreta handiz** bi-hiru bider errepikatzen zuenez. Aingeru Epaltza

9 *arreta hartu*

Zaila iruditzen zitzaion, ordea, fitxategia ordenatu, bi gaixoren **arreta hartu** eta diru kontuak egin behar baitzituen lehendabizi. Josu Zabaleta

Hildakoak dirudite, botinak han goian, oholaren gainean, txukun lerrokatuta uzteko **arreta hartu** ondoren euren burua urkatu berri dutenak. Itziar Otegi

Orain artean anaia eta arreba bezalaxe tratatu izan zaitut, inor ez hobesteko **arreta hartuta**. Itziar Otegi

Barreak Sedanoren **arreta hartu** zuen; bere lagun psikiatrari Deleuze-ri buruz esaten ari zitzaiona eten, eta Eugenia ohartarazi zuen: Ramon Saizarbitoria

Margolanaren xehetasunek **arreta hartu** didate eta hipnotizaturik begiratu diot mihiseari. Javi Cillero

Gozamenak dirauen denboran, bakoitzak nahi duen oinazera kondena dezake anderea, mailaka joateko **arreta hartuz**, kolpe batez leher ez dezagun... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

10 *arreta intentsiboko unitate*

Horretaz gain, gehienez lau egun igaro zituzten **arreta intentsiboko unitateetan** eta gutxiagotan behar izan zuten arnasketa aparatua. Berria - Gaiak

11 *arreta ipini*

Oraindik ilun baderitzozu, argi ikusiko duzu bost sentimen horietako baten **arreta ipintzen** baduzu, ikusmenean, adibidez. Imanol Unzurrunzaga

Une hartan Leire beste zerbait esaten hasi zen berriz, eta Ana bere gogoetatik atera zen neskatoak zioenari **arreta ipintzeko**. Aitor Arana

Itsasertzeko errepidetik joan zen mugarantz, pozik, ametsetan egiten eta ikuspegiaz gozatzen, aspaldiko partez naturaren edertasunean **arreta ipinita**. Migel Angel Mintegi

12 *arreta jarri*

Kantuari **arreta jarri** eta hasperen sakon bat egin zuen. Juan Luis Zabala

Beste aldetik, naturalistak **arreta jartzen** hasiak ziren bizidun guztien tasun erkideei. Juan Garzia

Harrikoa egiten ari zen neskak ere **arreta jarri** zuen orduan. Unai Elorriaga

-Horretantxe ahalegintzen naiz, behintzat -erantzun zion Andreasek, berriro **arreta jarririk** aitaren hitzetan. Anjel Lertxundi

Marmarka dago, bere hitzei **arreta jarri** gabe bezala: Monika Etxebarria

Atsedenaldian argi utzi dugu oinarrizko jokoan **arreta jarri** behar genuela eta diziplinaz jardun, baloi batzuk galdu baititugu. Berria - Kirola

Lukreziok **arreta jarri** zion artean ere borborka zegoen edabe hari. Juan Garzia

Arreta jartzen bada lege zibiletan, ez da eurok zuhurragoak edo zuzenagoak bihurtzeko, ezpada aldekoagoak egiteko; hain zuzen ere, erregimen berri hori aproban emateko asmoa nortzuk izan eta horien aldekoagoak. Andres Urrutia

13 *arreta oso*

Nahi baino geldiago joan ere, **arreta osoa** errepidean, ikuspena arras murrizturik baitzegoen. Migel Angel Mintegi

Horretaz gainera, ordea, irudi mota horietako batean zein bestean, gure begia eta gure **arreta oso** modu desberdinetan gidatu ahal izango dira denboran zehar. Josu Zabaleta

Esan dezagun aukeraketa teorikoen azterketa lantzeke dagoela oraindik, geroagoko ikerketa bat heldu arte, berari **arreta osoa** eskaini ahal izango diona. Xabier Arregi

Joko-taulari begira, erabat gizalegezkoa duzu bestearen ezaupide pertsonalean aurreratzeko gogorik ez erakustea, zure **arreta osoa** xakeari emanik. Joxe Austin Arrieta

Kantitatearen eta kalitatearen artean, bigarrena aukeratu dut: hogeita lau orduz ama aspertu bat baino, nahiago izan dut umearekin egiten ditudan ordu gutxi horietan **arreta osoa** berari eskaintzea. Arantxa Iturbe

Taniarengan jarri nuen neure **arreta osoa**. Jon Muñoz

Ez zion Quirrelli utzi behar **arreta osoa** ispiluan jartzen. Iñaki Mendiguren

Mekanoak **arreta osoa** zurrupatzen dio. Jokin Muñoz

Txokolatea eta galleta batzuk erosi genituen, eta **arreta osoa** haiek jateari emanda ibili ginen arrantzale-familiak bizi ziren kale arloteetan barrena. Irene Aldasoro

Bestalde, irrika orok du hein batean ergeltzen: gogoaren zabala eta argia, jakin-mina, estutu eta moteldu egiten du, maiteak bereganatzen baitu **arreta osoa**. Markos Zapiain

Horregatik, Akerbeltz jenio azienda-zaintzaileari buruz nekizkientxoak eta Apuleiok Urrezko astoan basa-arrosei buruz esaten dituenak neuretzat gorde, eta bi gizonen jardunean lotuta segitu du nire **arreta osoak**. Anjel Lertxundi

14 *arreta oso-oso*

Kinka larri hark hartzen zien **arreta oso-osoa**. Karlos Zabala

15 *arreta osoaz*

Arreta osoaz jarraitzen nuen nik osabaren azalpen zehatz hura. Txillardegi

16 *arreta osoz*

Gaia txit garrantzitsua da, eta merezi du puntu bakoitzari **arreta osoz** begiratzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haien inguruan jarrita, keinurik txikienari ere begira geunden, **arreta osoz**. Juan Kruz Igerabide

Eskuetan gutunazal hori handi bat zeukan eta handik ateratako dokumentazioa ari zen, **arreta osoz**, irakurtzen. Joxemari Iturralde

Arreta osoz zabaldu nuen atea. Anjel Lertxundi

Izan kontu larruazaleko gaitzekin; **arreta osoz** beteko duzue nik apaiz lebitarrei agindu eta haiek irakatsiko dizuetena. Elizen arteko biblia

Dena den, zelaian dauden hamaika jokalarien izenak direnak direla, **arreta osoz** egon beharko dute partida amaitu bitartean, orain arte egindako lana laurogeita hamar minututan zakarrontzira ez botatzeko. Berria - Kirola

Commendatoreak azaldu zidan ezen lantegiko jardunbidea, eta bereziki nire kargura utzi asmo zuen arazoa, **arreta osoz** babestu behar zirela industri barrandari posibleetatik. Juan Garzia

17 *arreta zerbitzu iz*

Herritarrenganako **arreta zerbitzuetako** langileen egoera salatu du ELAk . Berria - Ekonomia

Telefono bat eta **arreta zerbitzu** berezi bat jarriko dugu eskaintza publikoan interesa dutenei laguntzeko eta edozein zalantza argitzeko. Berria - Euskal Herria

Bizkaian, Aldarte izeneko **arreta zerbitzuan**, aspaldi sortu zuten Ama lesbianak izeneko gogoeta taldea. Berria - Harian

18 *arretaz adlag*

Arretaz eta kezkaz jarraitu dugu *Egunkaria*-ren afera hau. Berria - Euskal Herria

Zein goriak eta zein bortitzak istant erabakigarri haiek... eta zein **arretaz** beteak, bertzalde, jaun André, kapitainari begia gainetik kentzen ez niola, ene bizia haren keinuetarik edo haren lehen hitzetik dilindan balego bezala...! Joan Mari Irigoien

Honek hobeko du titulu nagusiaren azpiko letra etzanak **arretaz** irakurri, haiei begiratu begiak zoli. Berria - Kultura

Hark ez zidan kasurik egiten, astiro, **arretaz**, kaligrafiako idazkera ederrean pasaporte bat egiten zuen Lea Rifkin juduaren izenean. Matías Múgica

Leturiaren egunkari guztia analisi existentzialista hori besterik ez da funtsean, **arretaz** irakurtzen duenarentzat. Joxe Azurmendi

Balearen dantzari buruz zuk egindako ikerketak jarraitu ditut **arretaz**, eta esan behar dut ez nagoela zure ondorioekin erabat ados. Felipe Juaristi

19 *arretazko izlag*

Mungimendu sendo batez - **arretazko**, albokako, atzeranzko mugimendu motel batez-, xingolaren loturatik apartatu nintzen, zimitarraren helmena baino harantzago. Koro Navarro

Zuek beldur diozue **arretazko** begirada sakonari, ez zarete ausartzen zeuok gauzei sakon eta arretaz begiratzen, nahiago duzue gaingiroki behatu, inolako gogoetarik egin gabe. Jose Morales

Oharrok filosofiaren historikotasunaren **arretazkoak** dira oroz gainetik: espresuki didaktikoak izan nahi baitugu, zilegi izan bitez sinplifikazio batzuk. Askoren artean

Otoitz egiñaz irabazi edo zatarkeriak esanaz atera, ezta batere **arretazko** gauza. Xabier Mendiguren Elizegi

20 *bezeroarentzako arreta (corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

CCOO, UGT, ESK, ELA, LAB eta CSIFek deituta, hiru ordu eta erdiko lanuzteak egingo dituzte Correosek Bizkaian dituen **bezeroarentzako arreta** bulegoen aurrean. ETC-prentsa

Alazne Iruretagoiena Euskarazko Komunikazio Taldeko (EKT) **Bezeroarentzako Arretako** arduradunak bildutakoei esan zien herritarren babesa izan dela langileen indarra eguneroko lanean. ETC-prentsa

Arazoa normalean ez dago artikuluaren kalitatean, salmentaz geroko zerbitzuan baizik: **bezeroarentzako arretan** eta batez ere bermeen legea betetzeko orduan. ETC-prentsa

Enpresa dibertsifikazioa eta, enpresa txikiaren bereizgarri den aldetik, **bezeroarentzako arreta** bultzatzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Liburuak erosteko edo **bezeroarentzako arreta** zerbitzuarekin harremanetan jartzeko, mesedez, deitu telefono-zenbaki honetara: 1 (800) - CALL-WILEY (225-5945). ETC-zientzia, zuzenbidea

Tren konpainiaren **bezeroarentzako arreta** zerbitzua zen. ETC-literatura, saiakera

Mikroenpresak oso ezberdinak dira besteekiko hurbiltasuna dela-eta, **bezeroarentzako arreta**, enpatia kontsumitzailearekin, kudeaketa, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

NPB (herritarrentzako informazio gunea), txartelen salmenta, **bezeroarentzako arreta**, komunak eta kafetegia ditu. ETC-entziklopedia

21 *bezeroen arreta*

Eskaria zentralizatua dago, **bezeroen arreta** ez, ordea. Berria - Euskal Herria

Horrez gain, neurriak hartzeko eskatu dio enpresari: alde batetik, argindar linearen babes eremua garbitzeko, "horrelako gorabeherarik berriro gerta ez dadin»; bestetik, **bezeroen arreta** zerbitzua hobe dezala, "atzemandako hutsuneak eta akatsak saihesteko»; horiez gain, informazio osagarria eman dezala. Berria - Harian

Ohikoena etxeak garbitzen hastea izaten zen, edo bulegoak, eta aurrerago, hizkuntzaren menderatze mailak baimentzen zuenean, haurrak zaintzen hastea edota **bezeroen arreta** eskatzen zuten lanetan, hala nola, hotel batean harreragile edo jatetxe bateko zerbitzari. Joxemari Iturralde

22 *jendearen arreta*

Azken urte erdian Marterekin eta hegaztien gripearekin izan diren gorabeherak kontuan hartuz gero, askok pentsatuko dute zientziek **jendearen arreta** normalean baino gehiago erakarriko zutela. Berria - Gaiak

Espantuka eta txaloka esan zituen hitzok, baina ez bere hitzak indartzeko, **jendearen arreta** erakartzeko baino. Anjel Lertxundi

Telebistan azaldu denez, **jendearen arreta** jaso du azokan bertan ere. Berria - Kultura

Etxearen aurrean gelditu zen automobilak, hasteko, **jendearen arreta** bereganatu zuen. Ander Irizar

Haien pisupean pixka bat zabuka eginez, lortu zuen **jendearen arretagunetik** gelaren bazter batera irtetea; hantxe zegoen Ginny bere pertz berriaren ondoan. Iñaki Mendiguren

Hotelak apartak izan ziren, eta janaria eta **jendearen arreta** ere bai. Berria - Kirola

Barre egin zuen enpresariak gogotik, kristalaren bestaldean, inguruetako idazmahaietan zegoen **jendearen arreta** komisarioaren bulegorantz erakarriz. Harkaitz Cano

Irailaren 11ko atentatuen ondoren, **jendearen arreta** erakartzen genuen. Berria - Harian

Zergatia galdetzen zidatenei, bada, Galizian gaita festarako deia dela eta nik ere **jendearen arreta** neureganatzeko jotzen nuela eta halako arrazoi txepelekin erantzuten nien, Iraketik etorritako gerra albiste batek erantzuna eman zidan arte. Pako Aristi

Jendearen arretaren eskasez, loteria salgarriok sortu zituzten merkatariak dirua galtzen hasi ziren. Juan Garzia

Nolanahi ere, berdin zitzaidan **jendearen arreta** edo arreta eza, eta, erabaki hartu berriaren pozak piztuta, liburu-dendaz liburu--denda ibili nintzen hirian barrena, txoria bezain arin; afaltzeko orduan, berriz, salbuespena egin eta kafetegi dotore batera jo nuen, aspaldi ez bezala. Bernardo Atxaga

Transnational Institutuko zuzendari eta kanpo zorraren kontrako ekintzaile Susan George saiogilearen hitzaldiak **jendearen arreta** piztu zuen, ordea. Berria - Mundua

23 *jendearentzako arreta* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

2014an zaharberritze lanak hasi eta 2018rako bertan Espainiako Gobernuak Bizkaian duen **jendearentzako arreta**-lekuak bilduko ditu. ETC-entziklopedia

Duela bost urte udalaren **jendearentzako arreta** bulegoan egiten du lan, ordu bietarako irteten da, eta hasieran etxera korrika joaten bazen ere, arratsaldea aprobetxatzeko, orain ez da zuzenean etxera joaten. ETC-literatura, saiakera

Gaurren jarduerak kulturan, naturan eta **jendearentzako arreta** zerbitzuetan oinarrituko dira. ETC-prentsa

Gainera, zerbitzua ordaintzeaz gain, **jendearentzako arreta** orduak laukoiztuko ditu Aldundiak: asteartetik ostiralera, 16: 00etatik 18: 30era, urritik abendura bitartean. ETC-prentsa

Gainera, **jendearentzako arreta** zerbitzuez ere fundazioa arduratuko da, hala nola ostatu-hotelaren, dendaren eta topaketa eta batzarretarako zentroaren kudeaketaz. ETC-prentsa

Plan horretan, besteak beste, **jendearentzako arreta** eta informazio guneetan keinu hizkuntzako interpreteen zerbitzua emateko beharra jaso beharko dute. ETC-prentsa

Ondoko egoerak ere deskribatu ditu koalizioak legez besteko proposamenean: "**Jendearentzako arreta** " izeneko ikastaroak daude hainbat hizkuntzatan: "Komunikazioa katalanez" eskaintzen da: eta ingelesa A1 mailan hasi eta C1 mailara arte ikas daiteke. ETC-prentsa

Jendearentzako arreta-zerbitzuak arautzea eta eskaintzea, lehen arretarako gizarte-zerbitzu publikoak arautzea eta eskaintzea eta etorkinei harrera egiteko politikak sustatzea ETC-zientzia, zuzenbidea

Jendearentzako arreta bulegoetan edo horretarako zehaztutako tokietan haien eskura jartzen diren bitarteko eta zerbitzu elektronikoak libre eta dohainik erabiltzekoa administrazio publikoekiko harremanetan ETC-zientzia, zuzenbidea

24 *lehen mailako arreta*

Eustat estatistika erakundeak jaso duenez, **lehen mailako arreta** zerbitzuetan izaten da kontsulta gehien; medikuntza orokorrean eta pediatrian, alegia. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Medikuen Kolegio Ofizialean izan zen, eta, bereziki, **lehen mailako arreta** eskaintzen duten mediku eta erizainei zuzendua izan zen. Berria - Harian

25 *osasun arreta unibertsal* *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Osasun arreta unibertsala eta doakoa defenditu behar dugu, eta beti jendartearena dena defenditu; bestela, oso gertuan topatuko dugu laster osasun babesik gabe geratu den norbait. ETC-prentsa

Lehen, **osasun arreta unibertsala** geneukan: orain, ez. ETC-prentsa

Errealitatea ukatzea ez da bide egokia: ez dira **osasun arreta unibertsala** bermatzen ari, eta horrek izan beharko luke Osasun Departamentuaren lehentasuna. ETC-prentsa

Edozein kasutan, hiru hilabete baino gutxiagoz erroldatuta daudenek ez dute **osasun arreta unibertsalik** izango; turistatzat hartuko dituzte Osakidetzan. ETC-prentsa

Osasun arreta unibertsalaz hitz egin bai, baina **osasun arreta unibertsala** ez dela eskaintzen berretsi dute SOS Arrazakeria eta Munduko Medikuak erakundeek. ETC-prentsa

Nafarroan **osasun arreta unibertsala** ez dagoela ziurtatua salatu dute. ETC-prentsa

2013ko legeak **osasun arreta unibertsala** bermatu zien Nafarroan bizi direla froga dezaketen guztiei? ETC-prentsa

Osasun arreta unibertsala bermatzen zuen 8/2013 foru legea bertan behera utzi zuen Espainiako Auzitegi Konstituzionalak, baina eskubide hori beste bide batetik bermatuko du Nafarroako Gobernuak. ETC-prentsa

Horrez gain, Pedro Sanchezek jakinarazi zion Barkosi gobernuak atzera botako duela **osasun arreta unibertsala** bermatzeko foru legearen aurkako helegitea. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

adinako arreta (7); **ardura eta arreta** (5); **arreta apur bat** (6); **arreta behar** (5); **arreta bereganatu** (33); **arreta bereganatzea** (5); **arreta bereganatzeko** (15); **arreta bereganatzen** (7); **arreta berezia** (91); **arreta berezia eskaini** (10); **arreta berezia eskatzen** (5); **arreta berezia jarri** (16); **arreta bereziz** (5); **arreta berriz** (6); **arreta beste** (11); **arreta biziz** (8); **arreta deitu** (5); **arreta deitzeko** (5); **arreta desbideratu** (7); **arreta erakarri** (40); **arreta erakarri zuen** (14); **arreta erakartzea** (6); **arreta erakartzeko** (8); **arreta erakartzen** (17); **arreta eskaini** (10); **arreta eskaintzea** (7); **arreta eskaintzeko** (7); **arreta eskaintzen** (6); **arreta eskatu** (9); **arreta eskatzen** (19); **arreta eta ardura** (9); **arreta falta** (13); **arreta galarazten** (7); **arreta galdu** (22); **arreta galduta** (6); **arreta galtzen** (5); **arreta gehiago** (41); **arreta gehiago eskaini** (6); **arreta gehiago jarri** (7); **arreta gehiago jartzen** (5); **arreta gehiagorekin** (6); **arreta gehiegi** (6); **arreta gehien** (15); **arreta gutxi** (10); **arreta gutxiago** (7); **arreta gutxiagoz** (7); **arreta guztia** (103); **arreta guztia jarri** (6); **arreta guztiz** (6); **arreta handia** (45); **arreta handia jarri** (6); **arreta handia jartzen** (11); **arreta handiagoa** (38); **arreta handiagoa jarri** (7); **arreta handiagoa jartzen** (5); **arreta handiagoz** (37); **arreta handiarekin** (6); **arreta handiena** (7); **arreta handirik** (48); **arreta handirik eskaintzen** (5); **arreta handirik gabe** (11); **arreta handirik jarri** (14); **arreta handiz** (177); **arreta handiz aztertu** (5); **arreta handiz begiratzen** (6); **arreta handiz entzuten** (5); **arreta handiz jarraitu** (5); **arreta handiz jarraitzen** (5); **arreta handiz zaindu** (6); **arreta hark** (6); **arreta hartu** (10); **arreta hartzen** (7); **arreta hori** (5); **arreta jar** (7); **arreta jarri** (36); **arreta jarriz** (7); **arreta jartzea** (14); **arreta jartzeko** (18); **arreta jartzen** (24); **arreta jaso** (7); **arreta mantentzeko** (6); **arreta merezi** (12); **arreta oso** (5); **arreta osoa** (63); **arreta osoz** (30); **arreta pixka** (8); **arreta pixka bat** (6); **arreta pizteko** (9); **arreta pizten** (7); **arreta piztu** (21); **baino arreta gehiago** (7); **baino arreta handiagoa** (10); **baten arreta** (5); **batzuetan arreta** (5); **berari arreta** (5);bere arreta guztia (11); **bereganatu zuen arreta** (5); **beren arreta** (7); **bezalako arreta** (8); **buruzko arreta** (6); **entzuleen arreta** (5); **gaineko arreta** (7); **gure arreta** (24); **guztien arreta** (9); **haien arreta** (5); **hain arreta** (7); **hain arreta handiz** (5); **haren arreta** (20); **hedabideen arreta** (6); **herritarren arreta** (6); **ikuslearen arreta** (11); **ikusleen arreta** (8); **inoren arreta** (7); **jarri arreta** (11); **jarri du arreta** (9); **jendearen arreta** (23); **komunikabideen arreta** (5); **lehen mailako arreta** (6); **nazioarteko arreta** (6); **nire arreta** (40); **nuen arreta** (6); **osasun arreta** (5)

biktimen arretarako bulegoko (7); **emakumeen arretarako** (9)

arretarik eskaini (14); **arretarik eskaintzen** (7); **arretarik gabe** (32); **arretarik handiena** (5); **arretarik handienaz** (10); **arretarik jarri gabe** (13); **arretarik jartzen** (18); **arretarik merezi** (6); **batere arretarik** (6); **inolako arretarik** (7)

---

arretagabe 1 *izond* arretarik ez duena. ik **arretagaldu**.

Stepheni ez zion inolako zirrararik egiten horrek guztiak, eta aurrera jarraitu zuen bere jarrera **arretagabearekin** : ingurura begira, bere kolkorako doinuka, eta artista navajoa, berriz, han egon zen, marrazketan buru-belarri murgildurik, zirkinik egiteke ia. Xabier Olarra

Arretagabea izatea zen don Ferminen espezialitatea. Koro Navarro

Orduari ordu ibili nintzen arratsalde osoan, istriputik onik irten izana edo Basileako eskaintza bezalako nire burua pozteko moduko motibo garbienen hauspoketan, eta gogaikarrienak luzesteko halako jaidura **arretagabe** bat babestuz. Anjel Lertxundi

• **2** *adlag* arretarik gabe.

Arretagabe tira egiten zien sokei, noizean behin begi-kolpe bat luzatzen zuela etorri berri bakoitzaren aurpegira, eta noizean behin, asperdura beraz, zerura. Irene Aldasoro

Arretagabe nenbilen, kaletik txistua joaz. Koro Navarro

---

arretagabetu, arretagabe(tu), arretagabetzen da/du *ad* arreta galdu.

32 "Mundu erabat berria" eman diotela sentitzen du, gainerakook, koloreak **arretagabeturik**, senti ez dezakeguna. Xabier Olarra

---

arretagaldu *izond* arretarik ez duena. ik **arretagabe**.

Gure letren txirotasunak, erakargarri izateko erakutsi duten gaitasun-ezak, estiloaren sineskeria halako bat sorrarazi dute, alderdi partzialetan barreiatzen den irakurketa **arretagaldu** halako bat. Juan Garzia

Haurrak non zeuden galdetzen ziotenean, **arretagalduaren** eta ohartzen ez denaren plantak egiten zituen eta esaten zuen ez zela ongi oroitzen non utzi zituen. Fernando Rey

Txoriburua edo **arretagaldua** nintzela uste zuten bitartean, ahalegin bizian egiten zizkidaten hitzaldiak gutxi aditurik egia erran, artoski biltzen nituen gorde nahi izaten zizkidatenak. Jon Muñoz

---

arretagune *iz* arreta erakartzen duen auzia edo gaia.

Nire **arretaguneak** egitekoei lotuak dira, "ekintza-ingurukoak", eta nire denborapasako irakurketa, berriz, zientzia eta abeltzaintzaren inguruko aldizkariz osatua da gehienbat. Xabier Olarra

Orain, aldiz, Mendebaldearen **arretagune** bihurtu da. Berria - Mundua

Ez dut nahi konpainia osoaren **arretagune** izaterik ere. Mirentxu Larrañaga

Haien pisupean pixka bat zabuka eginez, lortu zuen jendearen **arretagunetik** gelaren bazter batera irtetea; hantxe zegoen Ginny bere pertz berriaren ondoan. Iñaki Mendiguren

Gakoa da bertsolariaren eta entzulearen **arretagunea**, une jakin batean erabat desberdina izatea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Denda bera ere, urtetan bere **arretagune** izana, erabat zeukaan hire anaiaren eta arrebaren eskuetan utzia; eta ez zuan bertara azaldu ere egiten. Txillardegi

---

arretasun *iz* arrea denaren nolakotasuna.

Kontu nahasi horietan sartzean, badirudi ur arretan neure buruaren errainua ikusi nahian ari naizela; itxaron egin behar ura geldirik jarri eta **arretasuna** hondora jaitsi arte; orduan, edan ere egin dezaket. Juan Kruz Igerabide

---

arretatsu **1** *izond* arretaz betea, arretazkoa.

Bi jira **arretatsu**, pausaleku bila. Anjel Lertxundi

Irakurketa luze eta **arretatsu** batetik ez zuen izanen juzgu osatuago eta sakonagorik ateratzerik. Fernando Rey

Noizean behin, bere begirada **arretatsu** eta irribarretsua luzatzen dit; baina ez nau ikusten; jaten ari dena zelatatzen murgilduegi dago. Monika Etxebarria

Sendotasuna kontuan hartuko da baldin eta zimenduak lur sendoan finkatzen badira eta materialen hornidura **arretatsua** eta zekenkeriatan ibili gabekoa egiten bada. Santiago Iruretagoiena

Argazkian, Campoyk liburuak jaso zitueneko unea, Juan Ramon Corpas Kultura kontseilariaren begirada **arretatsuren** aurrean. Berria - Kultura

2 (adizlagun gisa)

Ruche jaunaren hitzaldiari bezain **arretatsu** segitzen zituen Léak osso buccoaren prestalanak. Jon Muñoz

Kezkaz aztertu nituen, arestian baino **arretatsuago**. Aingeru Epaltza

Pasabideetan barna ibiltzen nintzen, jantzi edo liburuei baino bezeroei **arretatsuago**. Xabier Montoia

Arretatsu entzun dizkiot bere bizitzaz kontatu dituenak, India eta Txipre ere bisitatzeko modua izan duela, adibidez. Jon Arretxe

Beraz, **arretatsu** jokatu behar dugu aurrez generabilen sistemari berrekiteko. Berria - Kirola

Etxean dutxatik irtetean bezain **arretatsu** lehortu zuen zakilburua, bere azalari atzera eraginez eta haren azpia ere lehortuz, niri aspaldi irakatsi bezala. Aitor Arana

Andrea ondoan **arretatsu** eta erne zutela aprobetxatuz, Amaiak artean egiteko zuen bideaz galdetu nahi izan zion. Aitor Arana

Are **arretatsuago** behatu zuen adiskidearen begitartea eta izua unean baino unean handiago egin zitzaion. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arretatsu ari** (2); **arretatsu begiratu** (4); **arretatsu begiratzen** (4); **arretatsu entzun** (2); **arretatsu jardun** (2); **arretatsu jokatu** (5); **arretatsu jokatu behar** (3); **arretatsu jokatuko dugu** (2); **arretatsu ziharduen** (2); **astiro eta arretatsu** (2); **bezain arretatsu** (7); **erne eta arretatsu** (2); **hain arretatsu begiratzen** (2); **santuari arretatsu begiratzen** (2)

---

arretu, arre(tu), arretzen **1** da/du *ad* isurkariez mintzatuz, gardentasuna galdu.

Lehorteak aldaba jotzen ere badaki abuztuaren ibilian: iturrien jarioa ttanttankatzen denean, bibelarra ahuldua eta zenbait tokitan **arretua** eta erdi ihartua trixtetzen denean. Pello Zabala

Oinetakoak kendu, ibaian sartu eta hondo hareatsua astintzen du oinarekin, ura **arretzeko**. Itziar Otegi

2 da/du *ad* kolore arrea hartu edo eman.

Gero, adatsa **arretu** egin zitzaion laranja koloreko txabusina zuen bizkar lerdena korridoretik igarotzean. Lopez de Arana

San Rokeak ezkero, lurrak beltz, hala dio garbi esaerak berak, lurra belztu, **arretu** eta zikindu den arren. Pello Zabala

Ezkerreko leihatilatik ikusi nuen itsasoaren urdina zelan **arretzen** zen kolore lohitsu bihurtzeraino, marra ilun bat basoaren berde bizian. Xabier Montoia

3 irud/hed

Agian egongo nintzen ordubete han zutik; ez nuen ikusten irudimenak igortzen zidan irudi **arretu** hura besterik, eta haren lepo makurtu, hesola gaineko esku, eta azpiko gona-barren lanpara-argiak sotilki argituak. Irene Aldasoro

---

arretxiko *adlag* olgeta gisa, beste batean bizkar gainean igota. ik **arrelepo**.

Joten dau ni **arretxiko** naroana musturretan beste batek, eta hartzen nau gero lepoan eta banaroa bere burdira. Pablo Sastre

arrexka *izond* arrearen antzeko kolorekoa.

Maiatz pardo **arrexkak** libratzen eta salbatzen zuen, beraz, errearo garagarzarokoa. Pello Zabala

Rhineko zamoak kutxetatik ateratzen ari ziren, kolore urre **arrexkakoak**, eder-ederrak beren gorrixkatze metalikoekin, haien ezkaten xaflek brontzez estalitako esmalte banakatuak ziruditela. Karlos Zabala

Aldamenean beste gizon bat zutik, osterantzeko janzkiak bezain **arrexka** zen kapeluari esku biez oratzen ziola. Josu Landa

---

arrezife **1** *iz* uharria, izaki bizidunek sortutakoa.

Arrezifeetako arrantza ikuskari bikaina zaio mutilari. Edorta Jimenez

Gaskoinako itsasoak azpia jan eta urratu egiten dio, eta **arrezifeetan** luzatzen ditu bere marruma alimaleak. Koldo Izagirre

Olatuak zalapartaka lehertzen ziren **arrezifeko** hesiaren kontra. Lopez de Arana

Koralezko **arrezifeak** galtzen ari direla gogorarazi dute aste honetan Estatu Batuetako biologoek. Berria - Gaiak

Eta, horretan zebilela, urpean zegoen **arrezife** bat jo zuen, halako indarrez non Peter kareletik jausi zen, eta itotzeko puntuan egon zen, baina ontzira igo ahal izan zen berriro. Julen Gabiria

2 ***koral arrezife***

Lurreko ekosistema zaharrenetakoak eta biodibertsitate handienekoak dira **koral arrezifeak**, adituen esanetan. Berria - Gaiak

Eta ez da Pazifikoko uharteetan martxan jarri nahi den egitasmo bakarra: Kiribati artxipelagoan itsas parke handi bat eratu nahi dute, bertan dauden **koral arrezifeak** babesteko asmoarekin bereziki. Berria - Gaiak

Europan nekazariek kalte handiak izango lituzketela aurreikusi dute, **koral arrezifeen** %97 desagertuko liratekeela, eta Afrikan eta Ameriketan gaixotasun asko Ðmalaria, esaterakoÐ indartuko liratekeela. Berria - Gaiak

3 ***koralezko arrezife***

Koralezko arrezifeak galtzen ari direla gogorarazi dute aste honetan Estatu Batuetako biologoek. Berria - Gaiak

Arrain espezien %4 (4.000 espezie inguru) **koralezko arrezifeetan** bizi dira. Berria - Gaiak

Kolore harrigarriak ditu han eta hemen, eta **koralezko arrezifeak** eta itsasontzi itxura dauka, eta kobazulo basati eta bakartiak. Julen Gabiria

---

arrianismo *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi) iz* Jesukristoren jainkotasuna ukatzen zuen doktrina, Arriok sortua.

Kristau fedearen muina eta berezitasuna Jainkoa gizaki egitean eta historian sartzean dagoen bitartean, "**arrianismoa**" leporatzen diete Jainkoa Jesusen gizatasun historiko horretantxe gizaki egin dela erakusten digutenei. ETC-prentsa

Pertsonaia horietako batek, Tarazonako gotzainak, **arrianismora** hurbiltzea ere leporatu dio Pagolari -Jesus gizon hutsa dela diote arrianistek, haren jainkotasuna ukatuz-. ETC-prentsa

Arrianismo izena duen dotrina kristautasun kristauaren sortzailea izan zen. ETC-entziklopedia

---

arriano *iz/izond* Jesukristoren jainkotasuna ukatzen zuen doktrinaren jarraitzailea.

Irudi berbera iragan zen bisigotoen artera, monarka **arrianoak** katolizismora bihurtu zirenean. Patziku Perurena

Biek gaitziritzi zieten Konstantinoplako kontzilioko anatemei; biak jazarri zitzaizkien **arrianoei**, zeinek ukatzen baitzuten Semearen sortze eternala; biek jo zuten ortodoxotzat Cosmas-en Topographia christiana delakoa, zeinak irakasten baitu lurra karratua dela, hebrear tabernakulua bezala. Juan Garzia

---

arriarandar *izlag/iz* Arriarangoa, Arriarani dagokiona; Arriarango biztanlea.

Iazko Euskal Herriko finalean Nazabalek ateratako aldea "normaltzat" jo du **arriarandarrak**. Berria - Kirola

---

arribada **1** *iz* itsasontzi bat porturen batera iristea babes bila.

Harginak beharrari lotu ziren ugazaba azal zedin baino lehen, eta itsaso txarrak **arribada** atzeratuko zuela etsita zeundenean, "Isla de Luzon" deletreatu zuen doker zaharrak espainiera txukunean zure aldamenean. Koldo Izagirre

2 *iz* heltzea, iristea.

Eta opari bat eskainia izan zaie elbarrituei Frantziako itzuliaren **arribada** kari, Réduit plazan leku berezia ukanen dute txirrindulariak lehen lerroan ikusteko hel mugaratzen. Herria

Eta, bide hartan, ondoko bideetan, aurrean zein atzean, gurdi kirrinka urrunek antzeko ilarak iragartzen zituzten; sekulako merkantzia **arribada** zen hura. Karlos Zabala

3 *iz* pastoraletan, arizaleen iritsiera.

Arribadak aratsaldeko 4ak eta erdiak eta 8ak artean egiten dira. Herria

4 ***arribadan***

Moilara iritsi nintzenean estatxa trinkatzen ari zen Beti Santa Rita, bertakoa zen, Fontela anaiena, baina ez zetorren **arribadan**, kanpaina osoa eginda zetorren. Koldo Izagirre

Bi baleontzi ikusiko dituzue berehala **arribadan** datozela. Joseba Sarrionandia

---

arribatu, arriba, arribatzen da *ad* heldu.

Arribatzean, bazen krakadaño bat eta bestalde mutxikoak eman dira! Han ziren oinezkoen agurtzeko Hendaia, Urruña eta Ziburuko auzapezak. Herria

Poliki, zapatillak ez zikintzearren elur lokaztuari begira, zumarretara **arribatu** zen; hiru zumar, kukuluetan hosto gorrizta batzuk, enborraren alde batean horma, beltxuria beste aldea eguzkiaren argitan, elur gainean hiru itzal. Pablo Sastre

-Azkenian anbulantzia eta penizilina Iruñera **arribatu** zitxun, oixu! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Akitua **arribatzen** naiz etxera, biziki nekatua. Menane Oxandabaratz

Goizaldean jende gehienak lo egin zuen eta egunsentia puntualegi **arribatu** zen. Joseba Sarrionandia

Bayrouez da arras 9 miliunetarat **arribatu**, Noel Mamère-ek 4 miliunen ozka du gainditu, ez gehiago. Herria

Harkiari frankotan galde egin diozue noiz **arribatuko** ote. Xabier Montoia

Eskainiko niokean gustura sakrifizioren bat bizitzari: ez zitzaidaan axola izango **arribatzen** ginen portuetarkoren batean etxeko posta-mezuren bate berri txarrak ekartzea, ez zitzaidaan axola izango jauregi hau errea zela, edo dirua galdua nuela jakin izan banu... Xabier Olarra

Manhattanera **arribatu** direla ohartu da. Harkaitz Cano

Eta Amsterdamerat **arribatu**, untzia deskargatu, eta kargaren truke koberatu beharreko diruak koberatu ondoren, berriz, kapitainak bere azken kontseilua eman zidan. Joan

Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

ahal bezala arribatu (2); **arribatu aitzin** (2); **arribatu arte** (2); **arribatu baino** (3); **arribatu da** (5); **arribatu den** (3); **arribatu den burdinolarako** (2); **arribatu dena** (2); **arribatu dira** (7); **arribatu dira hendaiarat** (2); **arribatu ginen** (6); **arribatu gira** (2); **arribatu nintzelarik** (2); **arribatu nintzen** (5); **arribatu orduko** (4); **arribatu zarete** (2); **arribatu zelarik** (2); **arribatu zen** (9); **batera arribatu** (3); **berantago arribatu** (3); **bezala arribatu** (2); **dakarrela arribatu** (2); **dakarrela arribatu den** (2);han arribatu (2); **itsasontzi bat arribatu** (2); **segundu berantago arribatu** (2)

---

arrimarazi, arrimaraz, arrimarazten du *ad* arrimatzera behartu.

Horrexek **arrimarazi** zuen Châtelet-eko makila-sarjentu Casin Cho-let-engana; bere ofizioaren itzalpean, txanponbide makurra zuen. Juan Garzia

---

arrimatu, arrima, arrimatzen **1** da/du *ad* hurbildu. ik **bermatu**.

Arrimatzen diren kazetari-gaiak harri eta zur geratzen dira ikustean bertaratzen diren ofizioko berriemaile gehienak mutuak direla. Txema Ramirez de la Piscina

Amak esan al dizu hona etortzeko? ez **arrimatu** gehiegi, Justo, begiak pantailan itsatsita geratzerik nahi ez baduzu. Joxemari Urteaga

Orduan **arrimatu** zen txalupa, eta gauza asko ez dut gogoratzen. Berria - Harian

Oso **arrimaturik** sentituko dituzu bere titiak zure paparraren kontra, bere gerria zure gerriaren kontra, bere izterrak zure zangoartean, bere arnasa zure saman, bere zangoartea zure izterretan. Joseba Sarrionandia

Ahal nuen gehien **arrimatu** naiz hormaren kontra, taldeari pasatzen uzteko. Anjel Lertxundi

Astemea, hura ikustean, harresira **arrimatu** zen, Balaamen berna harresiaren kontra zanpatuz. Balaamek jo egin zuen berriro. Elizen arteko biblia

Dantzan ibili ziren eta neska asko **arrimatu** omen zitzaion. Lourdes Oñederra

Gai-jartzaileari ondo ulertu nion, ezkongaiak ziren eta Lazkanok dudak zeuzkan, bestea ez ote zitzaion aitaren dirutzagatik **arrimatuko**. Joxean Sagaztizabal

2 da/du *ad* antolatu, prestatu, moldatu.

Gure plazak gaur egun itxura ederrenetarik izanki eta, inguruko auzotegieri buruz doatzin bideak osoki dire **arrimatuak**. Herria

Orai izanen da dorpeena: lasa ernai nagusia, ezkila dilindan jasanen duena, bere tokian ezartzea; agian ongi **arrimatuko** dute ezkilaren kafia. Herria

3 da *ad* bikote bat ezkondu gabe elkarrekin bizitzen jarri.

Arrimatuak, ez ezkonduak. Joxerra Garzia

Ezkongabeak, **arrimatuta** bizi direnak, ezkonduak, bananduak eta alargunak, denak masturbatzen dira. Luis Elberdin

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 1 aldiz agertzen direnak)

arrimatu arte (1); **arrimatu artean** (1); **arrimatu aurretik** (1); **arrimatu behar izan** (1); **arrimatu beharra** (1); **arrimatu berriz nigana** (1); **arrimatu besterik ez** (1); **arrimatu da gaztea** (1); **arrimatu dut** (1); **arrimatu egiten zuan** (1); **arrimatu ere bai** (1); **arrimatu gabe** (2); **arrimatu gara** (1); **arrimatu gehiegi** (1); **arrimatu gurean** (1); **arrimatu haren etxera** (1); **arrimatu naiz** (1); **arrimatu nintzen** (3); **arrimatu ohi da** (2); **arrimatu omen zitzaion** (1); **arrimatu zaio** (2); **arrimatu zaizkie** (1); **arrimatu zaizu** (1); **arrimatu zara erantzunean** (1); **arrimatu zen arren** (1); **arrimatu zen txalupa** (1); **arrimatu zuen bankua** (1); **asko arrimatu** (1); **ataurreraino arrimatu** (1); **auzora arrimatu** (1); **barnealdeko ordokitik arrimatu** (1); **bat arrimatu zaizu** (1); **bera arrimatu** (1); **beregana arrimatu nintzen** (1); **bidali eta arrimatu** (1); **bilbo aldera arrimatu** (1); **biziki ontsa arrimatu** (1); **burua arrimatu** (1); **dantzan beregana arrimatu** (1); **elkarrengana arrimatu ziren** (1); **etxeraino arrimatu zen** (1); **ez arrimatu berriz** (1); **ez arrimatu gehiegi** (1); **ez baitzen arrimatu** (1); **ez naiz arrimatu** (1); **ezein ofizialtasuni arrimatu** (1); **gehiago arrimatu zaio** (1); **gehien arrimatu naiz** (1); **graduraino arrimatu** (1); **harengana arrimatu** (1); **harresira arrimatu zen** (2); **harrira arrimatu aurretik** (1); **hautsiak arrimatu arte** (1); **helburu horrekintxe arrimatu** (1); **hi ez arrimatu** (1); **inor arrimatu** (1); **inori atzetik arrimatu** (1); **irabazleengana arrimatu** (1); **itsasotik arrimatu** (1); **kontra arrimatu** (1); **litrora arrimatu** (1); **mahaira arrimatu** (1); **mediterraneo itsasotik arrimatu** (1); **neska asko arrimatu** (1); **noiznahi arrimatu** (1); **ofizialtasuni arrimatu gabe** (1); **ontsa arrimatu** (1); **ordokitik arrimatu** (1); **orduan arrimatu** (1); **paretaren kontra arrimatu** (1); **sarritan arrimatu** (1); **sekula arrimatu ez** (1); **sobera arrimatu** (1); **tipo bat arrimatu** (1); **tximiniara arrimatu** (1); **zain dagoenean arrimatu** (1); **zoro etxeraino arrimatu** (1)

arrimatuxeago dantzatzen (1); **lehen baino arrimatuxeago** (1)

---

arrimatze **1** *iz* hurbiltzea.

Azaroaren azken aste parea, egunik laburrenak **arrimatzearekin** batera, negu-negukoa gerta daiteke. Pello Zabala

Egun hauetako arratsetakoren batean edo bestean, ez da harritzekoa ekaitzak jo, bere deskarga hainbeste litrokoa utzi, eta gaueko lehen orduotarako, berriro orkestra, trumoi-tinbalen perkusio eta guzti **arrimatzea** euri-zaparradaren batekin. Pello Zabala

2 da/du *ad* antolatzea, prestatzea, moldatzea.

San Inaxioko bidean igeltsuteitik, Hiriart langai enpresak galdegiten du **arrimatze** denboran ahal bezein guti hor gaindi igaitea. Herria

---

arrimo ik **arrimu**.

---

arrimu **1** *iz* euskarria, laguntza, babesa.

Gehienak arroken gainean daude anabasan, ur zikinak isurtzen dituen hustubidearen **arrimura** etorriak. Jokin Muñoz

Irria pizten badigu ere, kontsolamendu tristea da filosofoaren hitza, hala nola den tristea eskuaren konpainia beste gorputz baten **arrimua** irrikatzen duenarentzat. Xabier Mendiguren Elizegi

Maila pertsonalean **arrimua** eman zidan auto-estimu literarioa oso kolokan neukan une batean. Ana Urkiza

Mahatsondoek eta makaldiak bat egiten duten tokian dago, ibaiaren bihurgune baten **arrimura** jarria. Jokin Muñoz

2 ***arrimuan***

- Arraioa, haizea baino arinago egiten du korrika -esan zuen Royk arnasestuka eta zabuka, Herfen sorbalden **arrimuan**. Lopez de Arana

Atzealdeko ezpondan, berriz, belar izpi bakanen **arrimuan**, beste lagun mordo bat geldi; berauek ere norarik gabeko begira funsgabean. Txillardegi

Pitxerrak haien aurrean utzitakoan, zuhaitz batera hurbildu, enborraren **arrimuan** zegoen pala handi bat hartu, eta lorategira joan zen. Jose Morales

Coliman bizi ginen, izeba Gertrudisen **arrimuan**, eta hark aurpegira botatzen guri berarentzat ginen zama. Juan Garzia

---

arrio ik **arreo 2**.

---

arriskatu, arriska, arriskatzen **1** du *ad* arriskuan jarri.

Guraso izan gabe, nire kargu-egite hutsagatik beren bizia **arriskatzen** zuten batzuen etxean bizi behar nuen? Anjel Lertxundi

Alexek proposatu zuen bere autoan eramatea, baina ez zuen inork hainbeste **arriskatu** nahi izan. Fernando Morillo

- Amodioa, ezkondu aitzin badun eta, ezkontza ahitzean, bikotekide batek edo besteak bere gustuko ohaidea harrapatzea lortzea duenean, bestela bizi osoa amodiorik gabe

higatzeko **arriskatzen** dun! Itxaro Borda

Ederki lagunduko ziguten halakoetan, bai arraunean, bai arrantzan; alabaina, geure buruak **arriskatu** bai, baina bihotzik ez genuen gazteei arriskura joaten uzteko; zeren, esan dizudanagatik ere, izugarrizko arriskua baitzen hangoa, eta gezurra litzateke besterik esatea. Koro Navarro

Euren arteko lehian ez zuten asko **arriskatu** eta hiru partida berdinketarekin bukatu ziren. Berria - Kirola

-Odol nobleenak bizitza zuengatik **arriskatzen** du -zioen Zednicek kontseilariak leiho ondoan. Fernando Rey

Nik uste, jendea zenbat eta lasago eta harroago bizi, orduan eta prestuago izaten dela sentimendu atsegin bategatik bizia **arriskatzeko**. Patziku Perurena

Arrazoizkoa al da, bere burua eta gauza guztiak zugatik heriotzara arte **arriskatu** dituen adiskide zintzoari hain premialdi larrian huts egitea? Askoren artean

Edek Morse andrearen alde **arriskatzen** zuen dirua denak poker-jokoan aritzen zirenean; alboan esertzen zitzaion eta noizbehinka haren belaunen kontra igurzten zituen bereak, partida amaitu artekoan. Mirentxu Larrañaga

Kuriosegia agertuz, **arriskatzen** nuen fitsik ez jakitea. Daniel Landart

2 da *ad*

Kirol kazetariek (bat-batekotasuna dela eta gehien **arriskatzen** direnak, bestalde), politika orrialdeen arduradunek adina zaintzen dituzte ideologiaren zutabeak. Iñigo Aranbarri

Hala ere, agindu oso zehatzak zeuzkan, ezin zen **arriskatu** Berria - Kultura

Cerratok ez zuen inolako helbururik izan sekula, ez zen ezertara **arriskatu**, etxe zuloan bertan. Juan Garzia

3 ***larrua arriskatu***

Gainera, onartu beharra dago, monokuloaz ibiltzen diren zerrikumeak izango dira, baina **larrua arriskatu** behar denean, arriskatzen dute. Koldo Biguri

Gehiago ikusten ditut nik Gortean eta Zuzendaritzan, **larrua arriskatzen** den liskar-zelaian baino. Txillardegi

Hi heure **larrua arriskatzen** bahabil, zer deabrurengatik ez du jarri behar bestek zerbait beretik? Contla aberatsez pil-pil zagok. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

arriskatu baitu (2); **arriskatu barik** (2); **arriskatu behar** (12); **arriskatu behar da** (2); **arriskatu beharra** (4); **arriskatu du** (3); **arriskatu duen** (2); **arriskatu duten** (2); **arriskatu egin** (30); **arriskatu egin behar** (14); **arriskatu egin dut** (2); **arriskatu egin zuen** (5); **arriskatu egingo** (4); **arriskatu egiten du** (3); **arriskatu eta argitaratzeari** (2); **arriskatu eta irabazi** (2); **arriskatu gabe** (10); **arriskatu nahi** (17); **arriskatu nahi izan** (5); **arriskatu nintzen** (4); **arriskatu zen** (5); **arriskatu zuen** (10); **arriskatu zuten** (5); **asko arriskatu** (17); **asko arriskatu eta** (2); **asko arriskatu zuen** (4); **bakea lortzeko arriskatu** (3); **bizia arriskatu** (6); **bizitza arriskatu** (2); **buruak arriskatu** (2); **dena arriskatu** (2); **ez arriskatu** (4); **ez du arriskatu** (3); **ez dut arriskatu** (3); **ez nuen arriskatu** (2); **ezer arriskatu** (2); **ezin nuen arriskatu** (2); **ezin zen arriskatu** (3); **gehiago arriskatu** (2); **gehiegi arriskatu** (6); **gehiegi arriskatu gabe** (2); **gutxi arriskatu** (2); **gutxiago arriskatu** (2); **hainbeste arriskatu** (3); **horrenbeste arriskatu** (3); **horretara arriskatu** (2); **lortzeko arriskatu** (4); **sakearekin arriskatu** (2); **sobera arriskatu** (3); **sobera arriskatu gabe** (2)

arriskatua da (2); **arriskatua izan** (2); **arriskatua izan da** (2)

arriskatuko da (2); **arriskatuko dut** (2); **arriskatuko dute** (2); **arriskatuko naiz** (2); **gehiago arriskatuko** (2); **gutxiago arriskatuko** (2)

arriskatuz irabazi (2); **bere bizia arriskatuz** (2); **bere burua arriskatuz** (2); **bizia arriskatuz** (5); **bizitza arriskatuz** (2); **burua arriskatuz** (2)

---

arriskitsu ik **arriskutsu**.

---

arrisku **1** *iz* ezbehar edo kalteren bat gertatzeko mentura; norbaiten edo zerbaiten izatasunari edo osotasunari eraso diezaiokeen gauza, eta hortik segitzen den egoera..

Grossmanek galdegin zion ea atxilotuko ote zuten, edo halako **arriskurik** ba ote zuen berak, liburua idazteagatik. Felipe Juaristi

Bide horretatik jarraituz gero erotuko zela esan zion, eta geralekua uzteaz gain, tren-estaziotik ahalik eta gehien urrundu behar zuela aholkatu zion Almak, trenen batetik jaitsitako inor hartzeko **arriskua** gutxienera murrizteko. Iban Zaldua

Errauste plantek zer **arrisku** dute? Berria - Euskal Herria

Udak aurrera segitu zuen, lagun maiteok, eta izan zuen heroiak patxada hartzeko denborarik, hasiera bateko milaka **arriskuak** etxekotuta. Joxean Sagaztizabal

Sartu aurretik, nobatoetako batek esan zuen eraikineko lehen solairuko lurreko zurajeak su hartu zuela, dena erortzeko **arriskua** zegoela. Jon Alonso

Arriskuaren labanaren gainean dantzan, egunak eta egunak urpean. Sonia Gonzalez

-Hor beti izanen diagu **arrisku** haundiagoa. Pello Lizarralde

Aurkitze-prozedura izan beharrean ebaluaketazkoa den gure helburu apalagoak, biribilkeria ustelaren **arriskua** deuseztatzen du goian jorratutako adibide guztietan. Itziar Laka

Bihar ere erosteko **arriskua** hartu beharko dut, baina tira. Eider Rodriguez

Egin beste horrenbeste bigarren zatian, hots, begira ez edukitzearen onurak eta ekoizpenak; baita, alderantziz ere, ez edukitzeak berak dituen nekeak eta **arriskuak**. Patxi Altuna

Zauria irekitzeko **arriskua** ekiditeko ezin zuen orain kaxarik altxatu edo baratzean luzaroan lan egin. Joseba Urteaga

Bidaia kronikak gogoaren arabera idazteak geroa du **arrisku**. Edorta Jimenez

Aterpea erreta zegoela esaten zuen, eta bertan geratuz gero erortzeko **arrisku** handia zegoela. Jokin Muñoz

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Smithers andrea sartu zenean aurpegia aztertu nion, ikaratuta, **arrisku**-seinaleren baten bila, baina berak deus gertatu ez balitz bezala jokatzen zuen. Fernando Rey

Motorrak, gainerako hirurak, ondo zihoazen: erortzeko **arrisku**-zantzurik ez behintzat eta, ikusi nuenez, ongi eusten genion goiari; kostaldea ere han behean ageri zen, lanbro artean, gero aintzira moduko bat, eta harantzaxeago zingira batzuk. Joxe Austin Arrieta

Zuk zeuk jo zenuen **arrisku**-kanpaia. Aritz Gorrotxategi

Arrisku-keinua da; izan ere, ortzimugan, txapel goibel baten barrena ageri baita. Itziar Otegi

Horra, bada, nola erakusten zigun Anaia Martinek, gaiztakeriak itxura asko hartu arren, izatez bat besterik ez dela, eta pornografia eta komunismoa, gazteok genituen bi **arriskurik** beldurgarrienak, txanpon bakarraren bi alderdiak. Xabier Mendiguren Elizegi

Kontuan hartzen badugu jarduera ekonomikoa ziurgabetasun eta **arrisku** esparru batean garatzen dela, aurreko horien osagarri gisako laugarren printzipio bat sar genezake: zuhurtzia printzipioa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ekaitz giroa zetorrela, kontuz ibili behar zenekoa, alegia, goizean garbi antza zen arren ekaitz-**arriskua** zela? Pello Zabala

Bestalde, zeren eta adieraztea eta finkatzea zer neurritako amoina behar den izpirituko sariarentzat ez du simonia **arrisku** gehiago izaten promesa orokor batek sari nabarmen batentzat izan behar duen baino. Piarres Xarriton

Uholde-**arriskua** handiagoa izan ohi da -zioen Mitxelenak- euri asko denbora laburrean egiten badu. Lourdes Oñederra

Gero distrituko administrazioak, tundrako bizimoduak neskatilarentzat zekartzakeen osasun **arriskuak** zirela eta, barnetegian sartzea erabaki zuen. Pablo Sastre

4 ***arrisku biologiko***

- Grezia: Larrialdi plan zorrotza eratu dute, 2004ko Olinpiar Jokoetako **arrisku biologikoen** planean oinarrituta. Berria - Gaiak

Maiatzaren erdialdera arte itxaron behar **arrisku biologikoa** amaitutzat eman daitekeen jakiteko. Berria - Ekonomia

5 ***arrisku egoera*** *iz* arriskuren bat dakarren egoera; bereziki, gizarteko talde zaurgarrienen osasuna eta segurtasuna arriskuan jartzen duen egoera, zaintza- eta babes-neurri bereziak eskatzen dituena.

Arrisku-egoera hori ezin duk gehiago jasan. Xabier Olarra

«Bizikidetzarako **arrisku egoerak** eragin eta Espainia noraezean jarri duzu», ohartarazi zion Zapaterori. Berria - Harian

Biharamuneko pilula **arrisku egoera** batean hartzeko pentsatuta dago: babesik gabeko harreman sexuala izan bada, edo kondoia apurtu bada, edo barruan geratu bada... Luis Elberdin

Gainera, **arrisku egoeratarako** konponbideak ez dituzte agertzen. Berria - Ekonomia

6 *arrisku faktore* *iz* pertsona baten ezaugarria edo egoera, eritasun edo osasun arazo jakin bat izateko arriskua areagotzen duena.

Saihestu behar diren **arrisku faktoreen** artean arriskutsuena tabakismoa dela gogorarazi dute, eta neurri gehiago hartu behar direla tabakoaren kontsumoa kontrolatzeko. Berria - Gaiak

Kanpo faktoreek dute eraginik handiena, **arrisku faktoreek**. Berria - Gaiak

7 *arrisku finantzario* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Arrisku finantzarioa, ekonomian, gertaera kaltegarri baten eta bere ondorioen probabilitatea dira. ETC-entziklopedia

Halaber, kooperatibetan langileek ere **arrisku finantzarioak** hartzen dituztenez, batzuetan frakasatuz beste edozein enpresa bezala, kooperatiben garapena ziurtatzeko legedia aproposa jarri behar dela zioen Europako Parlamentuak. ETC-prentsa

Bi kasuetan "One stop shopping" ideia kudeatu nahi da, baina bigarrenak **arrisku finantzario** gutxiago dauzka. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arrisku ekonomikoa -inbertsio-proiektuaren esplotazioagatik sortzen dena - eta **arrisku finantzarioa** -inbertsio-proiektuaren finantzapenagatik sortzen dena- bereizi ondoren, gai honetan zehar inbertio-proiektuen arrisku ekonomikoa aztertuko dugu soilik. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 *arrisku handiko kirol*

Gero jakin nuen idaztea **arrisku handiko kirol** bat dela. Pako Aristi

Arrisku bat bermaturik dagoenean, arriskuaren ondorioz gerta daitekeen kaltea gertatzeko probabilitatea handitu egiten omen da, arretaz aritzeko interesa murrizten baita (esaterako, **arrisku handiko kiroletan**, mendizale eta espeleologoen artean, kasu, erreskate taldeak egoteak eta zerbitzu horiek debalde izateak, zenbait kirolzale arrisku handiak hartzera eraman omen ditzake). Iñaki Heras

Bidegorririk gabe eta ohiturarik gabe, **arrisku handiko kirola** da Dohan txirrindularitza. Berria - Kirola

9 *arrisku ikur* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Arrisku ikurrak edo arrisku piktogramak merkantzien, subtantzien, lekuen edo objektuen arrisku mezu bat transmititzen duten marrazki figuratibo edo sinbolikoak dira, korronte elektrikoa, pozoia eta erradioaktibitatea barne, egoera desberdinetan. ETC-entziklopedia

Denak txineraz daude, eta ez ditut ulertzen, baina batek suge baten marrazkia dauka **arrisku ikur** handi batekin. ETC-prentsa

10 *arrisku kapital*

Kooperatiben Federazioak **arrisku kapitaleko** sozietate bat sortu nahi du. Berria - Ekonomia

2004ean inbertsioak egin dituzte higiezinetan Invelur, kasu, Madrilgo autobideetan, **arrisku kapitaleko** funtsetan Baring, baita haize-energiako azpiegituretan ere. Berria - Ekonomia

11 *arrisku-kirol*

Bideoa, telebista, bideokamera, ordenagailua, auto berria, mikrouhinak, airezko labea, hozkailua, argazki makina, proiektorea, mendiko bizikleta, sei kasko diferente -pilotan aritzekoa, bizikletan ibiltzekoa, eskalatzekoa, rafting egitekoa, motorrean ibiltzekoa, parapente egitekoa- zein makina bat **arrisku-kiroletan** aritzeko material espezializazio handikoa... Jon Alonso

12 *arrisku larrian*

Horretaz gain, ehunka intsektu, zizare eta armiarma espezie ere desagertzeko **arrisku larrian** daude. Berria - Gaiak

Izan ere, bere ustetan bonba atomikoa garatzeko bidea irekiko luke horrek eta, hartara, mundu osoko segurtasuna "**arrisku larrian**» egongo litzateke. Berria - Mundua

Hartan barneratzen da, ostera, Irkutskeko bidea, hango istil, urmael, aintzira eta zingiren erditik igarotzen da, non eguzkiak jario osasun-galgarriak sortzen dituen, bidaztia nekaraziz eta maiz **arrisku larrian** utziz. Karlos Zabala

Inoiz gertatzen baita zerutik itsasora zutabea bezalakoa jaistea, zeinaren inguruan haizearen putzek astinduriko urek suminki dirakiten, eta kalapita hartan harrapaturiko ontziak, kolpaturik, **arrisku larrian** aurkitzen dira. Xabier Amuriza

Baina hire nagusiak ezer berririk ikasi ez badu, orduan **arrisku larrian** egongo haiz, hi eta gainerako zerbi. Agustin Otsoa

Gizakiarena da? ora eta fauna basatiaren eta beronen habitataren ondarea babesteko eta zentzuz administratzeko erantzukizun berezia, hainbat faktorek bat egin dutelarik gaur egun **arrisku larrian** dagoen kasuetan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Are eta kontu handiagoz, kontuan harturik kultura-aniztasuna -zeinak are paper handiagoa jokatu baitu gizadiaren garapenean aniztasun genetikoak berak baino- **arrisku larrian** dagoela gaur egun, industria-zibilizazioak ezarritako ereduaren mehatxupean. Juan Garzia

Izan ere, Parsifalen atzetik abiatu zenez geroztik **arrisku larrian** egon zen bere bizia behin baino gehiagotan. Alberto Ladron Arana

Bihotzak azaldu zionez, mutilak aitari ostutako pistola ezkutatu egin zion halako batean, harekin zauritzeko **arrisku larrian** baitzebilen. Xabier Aranburu

1. Marinel batzuk hondora joateko **arrisku larrian** aurkitzen ziren, Barlettako portutik hamar miliatara; ekaitza izugarri indartsu jotzen ari zen, eta bizitza salbatzeko ere zalantzaz, aingurak bota zituzten. Askoren artean

13 *arrisku moral*

Arrisku moralaren aldeko sutsuak dira hauek: eutsi diezaiola norberak bereari nazioarteko finantza merkatuetan, eta norberarena izan dadila erantzukizun osoa. Iñaki Heras

Jakina, **arrisku moralean** ere klaseak daude. Iñaki Heras

Arrisku moral hori (moral hazard) handiagoa da gaur egun, bankuek gero eta gehiago beren kontura esku hartzen baitute finantza-merkatuetan. Koro Navarro

14 *arrisku orotako aseguru* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Adibidez, ez dauka zentzurik urte dezente dituen auto batekin **arrisku orotako asegurua** kontratatzeak eta, berri batekin, berriz, ia ezer babesten ez duen bat. ETC-prentsa

Furgonetak bi urte baino pixka bat gehiago daukanez, **arrisku orotako asegurua** kontratatuta izan arren, aseguru-etxeak ez digu furgoneta bat emango. ETC-prentsa

Ibilgailuak bi urte baino gutxiago baditu, **arrisku orotako asegurua** eskatzen dute. ETC-prentsa

"Une honetan, gainera, **arrisku orotako asegurua** frankiziarekin eskaintzen dugun bakarrak gara merkatuan", gaineratu du Urrutiak. ETC-prentsa

15 *arrisku prima*

Operazioak **arrisku prima** handiarazi diola uste dute eta bi egunotan gogotik zigortu dute. Berria - Ekonomia

16 *arrisku sari* *(corpusean ez dago; ETCn **679** agerraldi)*

Finantzetan, **arrisku-saria** inbertsio bat egin eta hori ez berreskuratzeagatik eskatzen den errentagarritasun gehigarria da. ETC-entziklopedia

Bada, aztertu beharko genukeela bisitariei **arrisku sari** bat emateko aukera, konboian ateratzen direlarik. ETC-literatura, saiakera

Jaitsi egin dela aspaldiko partez **arrisku sariarekin** batera. ETC-literatura, saiakera

Kezka hori handitzeak **arrisku-sarien** gorakada eragin du, praktikatzen diren interes-tasak igoaraziz eta estatuak kinka-larrian jarriz, geroz eta zailtasun handiagoak dituztelako beraien zorra finantza-merkatuen bidez diruztatzeko. ETC-literatura, saiakera

Ibilian, dezente Kokkinias gehiago azaleratu zitzaion Atenasen bertan, amuarrain tripazgorakoz bete zen arte erreskatez, **arrisku sariz** eta murrizketaz pozoitutako erreka. ETC-literatura, saiakera

Nazioarteko merkatuetan emango den konfiantza galera **arrisku-sarietan** islatuko da. ETC-prentsa

NDFko zuzendari nagusiak, baina, beste aukera batzuk hobesten ditu: bankuei **arrisku sariak** ordainaraztea edo funts bereziak sortzea. ETC-prentsa

Arrisku-sariak eta funtsak. ETC-prentsa

Bonoen finantzazio kostua merkatzeaz gain, bono horien gaineko **arrisku sariak** ere behera egin zuen EBZren gobernu kontseiluaz geroztik. ETC-prentsa

Kreditu merkatuetan, berriz, Espainiaren zor publikoaren gaineko **arrisku sariak** behera egin du, eta Greziako krisia gori-gori jarri zen garaitik (maiatzetik) mailarik apalena

lortu du. ETC-prentsa

Espainiaren **arrisku saria** 236 punturaino iritsi da, historiako kopururik handiena. ETC-prentsa

Arrisku-saria zor publiko ezberdinen arteko errentagarritasun aldea da, merkatuen presio horren termometroa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Urtarrilaren 2an, **arrisku-saria** 100 puntuetatik behera kokatu zen, 2010etik lehen aldiz. ETC-entziklopedia

17 *arrisku seinale*

Sentsazio haiek guztiak aztertu nituen **arrisku seinaleren** baten bila. Alberto Ladron Arana

Etzaten hasia zen eguzkia mutilaren bihotzak lehenbiziko **arrisku-seinalea** igarri zuenean. Xabier Aranburu

Argi geratu zenean beren interes guztia bata bestearentzat zela, Denver aldentzen hasi zen jolasetik, baina begira egoten zen, erne, Maitearentzat **arrisku seinaleren** bat ikusiko ote. Anton Garikano

Motor-hotsak zakartu egiten dira, **arrisku-seinaleak** bailiran. Javi Cillero

Hori **arrisku seinalea** da, eta bankuko langile guztiek beti erreparatzen diote ea piztuta dagoen sartu nahi dutenean. Xabier Olarra

Smithers andrea sartu zenean aurpegia aztertu nion, ikaratuta, **arrisku-seinaleren** baten bila, baina berak deus gertatu ez balitz bezala jokatzen zuen. Fernando Rey

18 ***arrisku talde*** *iz* eritasun edo osasun arazo jakin bat izateko arriskua duen pertsona taldea.

Bikotekide finkorik ez dugunean, baztertu egin behar dugu **arrisku taldeen** inguruko pentsamendu hori, eta oso kontuan izan ez dagoela **arrisku talderik** baizik eta arrisku jokabideak. Luis Elberdin

«Nire seme-alabak ez daude **arrisku taldeetan** ». Berria - Harian

19 *arrisku txiki*

Bestalde, telega bezain sendoa da eta ez zailagoa konpontzen, eta, gainera, **arrisku txikiagoa** du atzeko alde guztia bide nagusietan galdurik lagatzeko. Karlos Zabala

Beraz, historia txiki batekin mito handi bat asmatzen da, esango genuke R. Aronekin, historiako etsai guztiei aitzi **arrisku txikiarekin** garaipen handia erraz lortzeko hori bezalakorik ez baitago. Joxe Azurmendi

Dena den, adostasuna lortuko dela iritzi zion: "Orain abenduan baino **arrisku txikiagoa** dago porrot egiteko». Berria - Mundua

Teoria horren arabera, haurtzaroan infekzio asko izaten dituzten haurrek alergiak izateko **arrisku txikiagoa** dute. Berria - Gaiak

20 ***arriskuan*** *adlag* arrisku egoeran.

- Telemako: ez duk denbora gehiago ibili behar etxetik kanpo, ondasunak utzirik, ezkongai harro horiek dena suntsitzeko **arriskuan**. Juan Kruz Igerabide

Apirilaren 3an, Amnesty International-ek Lularen gobernuaren kontra egin salaketaren berri ematen zuen: "Indigenak **arriskuan** ". Iñigo Aranbarri

21 *arriskuan egon*

Desagertzeko **arriskuan dagoen** espeziea da balea urdina. Berria - Gaiak

Emakumearen osasuna **arriskuan dagoenean** : emakumearen osasun fisikoa edo psikologikoa **arriskuan badago** aborta daiteke. Berria - Euskal Herria

Arriskuan dagoen beste espeziea, hizkuntza da, euskara. Joxerra Garzia

Besoak nire bizkar gainean zeuzkan eta amiltzeko **arriskuan nengoela** esan zitekeen, ez baitzuen ni askatzeko batere asmorik. Aitor Arana

-Hemen **arriskuan gaudek** . Koro Navarro

Lizarra-Garaziko su-etena **arriskuan zegoela** eta Renon kongresu bat antolatzeko ideia genuen, egoerari nazioarteko oihartzuna emateko asmoz. Joseba Zulaika

Behin, ontzia hondoratzeko **arriskuan zegoelarik** eta marinel guztiak izu-laborriaren atakan, inork ez bezalako kemena erakutsi zuen beltzak. Anjel Lertxundi

Eta zintzurrean gora birlak hantzen sentitzen nituen, gutako bakoitza "horrela ürrentzeko" **arriskuan zegoelako** funtsaren funtsean. Itxaro Borda

-Lege bat bazegok: ez duk lapurtuko... baina, laguna **arriskuan dagoenean** , laguna salbatzea duk lege guztien gaineko lege... Joan Mari Irigoien

Edota ohorea galtzeraino bortxatua izateko **arriskuan dagoen** gizonak edo emakumeak, ahal badu, erasoaldia jasan aurretik erasotzailea hiltzea baimentzen duen araua. Imanol Unzurrunzaga

Bestalde, **arriskuan nengoela** iruditzen zitzaion beti, noizean behin Leone atxilotzen zutelako. Fernando Rey

Conraden gorpurik ez nuen ikusi, baina itxura guztien arabera, haiekin batera hila zen... Ez zaitut xehetasun gehiagorekin aspertu nahi, maite, ez oraingo zure egoeran... **Arriskuan nengoela** eta, ezkutaturik egon nintzen pentsio merke batean. Aritz Gorrotxategi

Demokraziaren eta errepublikaren balioak **arriskuan zeudela** argudiatuta, Demoek bortxakeriarik eza aktiboaren filosofian oinarritutako ekintza ikusgarriak egiteko delibero sendoa hartu zuten. Txema Ramirez de la Piscina

Beraz, jakin ezazu xehetasun guztiz arazo horren berri, oi errege, eta zaindu gure herrialdea, **arriskuan dagoen** gure nazioa, denei eskaintzen diezun onginahi zabal horrekin. Elizen arteko biblia

22 *arriskuan ipini*

Ez dago esan beharrik inondik ere ezin zuela bere ohorea eta izen ona **arriskuan ipini** . Patxi Zubizarreta

-Barka nazak, lagun, neroni bezalaxe erotzeko **arriskuan ipini** haut-eta, munduan zaldun ibiltariak badirena eta izan direna, burua nahasteraino sinestaraziz. Patxi Ezkiaga

Eta ez dugu kalerik egiten, ez dugu garen soinezko maitagogo bizitza galtzen edo **arriskuan ipintzen** , zaindu eta gorde baino. Jenaro Garate

Errepasatu egin behar da dena, **arriskuan ipiniko** gaituen, salatuko gaituen ezer, batez ere euskarazko ezer ez daramagula ziur egoteko. Joseba Sarrionandia

Xake taulan ez genuke peoi bat defendatu behar, horretarako, erregina **arriskuan ipiniz** . Xabier Kintana

Gavardek **arriskuan ipintzen** zuen bere gantza, zimitza bezain zapal bukatuko zuen azkenerako. Karlos Zabala

23 *arriskuan izan*

Gizakia beti **arriskuan dela** eta biologikoki ere maitasuna derrigorrezkoa duela, hortxe tolestu dut orri izkina. Joseba Sarrionandia

Jaungoikoa goretsi behar dugu, bekatari eta dohakabe izateko **arriskuan diren** izakiei ere izatea eman dielako. Imanol Unzurrunzaga

Oraingoz ez dirudi Gasteizko artista, obra dagoeneko oparo baten jabe bada ere, errazkeriaren eta inertziaren mendean erortzeko **arriskuan denik** . Markos Zapiain

Gure aita sutan jarri zen jakin zuenean Alberto atxilotua zegoela eta Gerra Kontseilura pasatzeko **arriskuan zela** . Fernando Rey

Aldez aurretik hartua zuen xede zintzoari guztiz atxikia kausitu nuen arren, oroitarazi niolarik bere ukoaz zure itzulera zorionekoari trabarik ezartzeko, eta orobat probidentziaren erabaki urrikalkorrei, aldez edo moldez, uko egiteko **arriskuan zela** , onartu du zure ikustaldia, baldin azkenekoa bada, eta manatu dit berebat iragar diezazudan ezen etxean izanen dela datorren ortzegunean, hilaren 28an. Jon Muñoz

-Ardiekin mendian ibiltzen nintzenean, hiltzeko **arriskuan izaten** ziren aziendak sugeren batekin topo eginez gero. Xabier Aranburu

Jaidura handiz nabil horretan, oinazerik krudelenaren mende geratzeko **arriskuan bainaiz** ; ergelen barreen mendean, alegia. Jon Muñoz

Politika aldetik haizea batere ez zen Elizaren alde, are gutiago Elizako eskolen alde eta fraileak kanporatuak izateko **arriskuan ziren** . Xipri Arbelbide

Liburuetako orrialdeen artean, Jakobek beste orri batzuk sartzen zizkidan; banekien, ongi jakin ere, haietako orri bakar bat harrapatuz gero, bizia **arriskuan izango** nuela. Juan Kruz Igerabide

Sri Lankako bake prozesua **arriskuan izan** da azken hilabeteotan, Kumaratungak hiru ministro kanporatu eta Legebiltzarra bertan behera utzi ondoren. Berria - Mundua

Alitalia porrot egiteko **arriskuan da** , lan gatazka amaitu ezean. Berria - Ekonomia

Kanpoan geratzeko **arriskuan dira** orain. Berria - Kirola

Eisnerrentzat kezkarako motibo larria zen, Emanuelek adierazi duenez, Jeb Bushek Disneyri eskaintzen dizkion erraztasunak **arriskuan izatea** . Berria - Kultura

24 *arriskuan jarri*

Hitz potoloak edo bete-antxekoak gure esaldietan erortzen diren bakoitzean beren esanahi ofizialaren gantzak urtzeko **arriskuan jartzen** direla. Iñaki Segurola

Zergatik hasiko gara ba txalupa hau kulunkarazten eta iraultzeko **arriskuan jartzen,** geure buruari buruhausteak ematen? Oskar Arana

Aitaren bizia **arriskuan jar** dezakezu horrelakoak kantatzen badituzu. Juan Kruz Igerabide

Ordainketa-sistemari buruzko mesfidantza izugarria zabaldu zen, merkatuak higatu zituena, eta eragile asko **arriskuan jarri** zituena. Koro Navarro

Arriskuan jarriko ote zaitudan beldur naiz. Jon Muñoz

Beren buruak **jartzen** dituzte **arriskuan**. Elizen arteko biblia

Langile frontea ez bazen indartzen, organizazioa bera **jarriko** zen **arriskuan**. Bernardo Atxaga

Arriskuan jarri nahi gintuen, hiltzera gindoazela pentsa genezan. Fernando Morillo

25 *arriskuen prebentzio*

Lan **Arriskuen Prebentziorako** Legea, 10 urte betetzear denean, ez dela eraginkorra salatu du LABek. Berria - Ekonomia

Irakaskuntzan lan **arriskuen prebentzioari** garrantzia gutxi ematen zaiola ohartuta, gai horren inguruan antolatu du EILAS sindikatuak aurtengo udako ikastaroa. Berria - Euskal Herria

Onuragarria izanagatik ere, Nazioarteko Erregulazioaren Bankuaren gidaritzapean abian jarri den **arriskuen prebentzioa**, oraingoz, oso aurrerapauso txikia da. Koro Navarro

Izena eman zuen ingelesezko klaseetara, eta erne egoten zen Funtzionarioen Eskolak zer eskainiko, bere adimena esperientzia berrietara zabaltzeko, Europako Batasuna dela edo Lan **Arriskuen Prebentzioa** dela. Aingeru Epaltza

26 ***arriskutan*** *adlag* arriskuan.

Baziren aberats okitu batzuk oinarririk gabe dirua **arriskutan** ezin jarri zezaketela esan ziotenak; probak egin eta arrakasta izan ondoren ez zuketela eragozpenik izango ehuneko berrogeita hamarrean dirua emateko. Josu Zabaleta

27 *arriskutan egon*

Baina hausturaz hitz egiten ari natzaizu dagoeneko; eta ez dakizu oraindik zein bidez erdietsi dudan eskubide hori; irakur ezazu bada, eta ikus zer nolako **arriskutan dagoen** zintzotasuna, saiatzen delarik eromena laguntzen. Jon Muñoz

Gonzalezek ez zekien zakur hark dohain berezi bat zuela: **arriskutan zeuden** katuak salbatzekoa. Gotzon Garate

Lege horiek konbinaketa erdi-enpiriko, erdi-intuiziozkoak dira, izatez, eta, muga horien barruan, aski zehatzak ematen dute, salbu eta sakontasunari buruzko informazio bat ematen deneko, **arriskutan daudela** bertatik. Josu Zabaleta

Babes politikoa eskatu dute Frantzian, Turkiara egotziz gero beren bizia **arriskutan dagoela** argudiaturik. Berria - Euskal Herria

Itsas portuetan, non gizakiak mila **arriskutan baitaude**, eta urruneko klimetan bizi edo hiltzera baitoaz, emakume baino gizonezko gutxiago dago; hala ere, beste leku batzuetan baino haur gehiago ikusten dira han. Iñaki Iñurrieta

Aita, Civitavecchiako kartzelan, itsu gelditzeko **arriskutan zegoen** trakoma zela eta. Fernando Rey

Maisuak: Zer esaten du emakume batek **arriskutan dagoenean**? Pablo Sastre

28 *arriskutan ipini*

Berak Azkue uretatik ateratzeko bizia **arriskutan ipintzen** zuen bitartean, beste batek burutan lapurretan egiteko pentsamendua zeukan. Gotzon Garate

29 *arriskutan izan*

Esopok dio, Enarak eta txoriak alegian, mihura sortu bezain agudo ulertu zuela enarak **arriskutan zirela** hegaztiak, eta, txori guztiak inguruan bildurik, arteak ebakitzeko aholkatu ziela, haietan sortzen baitzen mihura, edo, hori ezinezko bazuten, gizonen artera joan zitezela babes bila eta erregutu ziezaietela ez baliatzeko mihuraren ahalmena beraiek harrapatzeko. Imanol Zurutuza

Gertatzen da norberak beti, beti, bere jokabidea zaintzen badu, memento batez, berdin memento labur batez, gogoa laxatzen zaizula, ahanzten zauzula **arriskutan zarela** eta kasu egin behar duzula, eta aski da. Michel Oronoz

Baina orain gauzak urrunago doaz, POS aldaketa xedea gelditua izaiteko **arriskutan dela** diote batzuek eta besteek. Herria

Ahalak mugatuak izanez, apez eskasia izateko **arriskutan zela** Euskal Herria. Xipri Arbelbide

30 *arriskutan jarri*

Hasteko, neure burua Dancenyri buruz **arriskutan jartzea** zelako; eta hura izanagatik neska ttipi harekin balia nezakeen arrazoi bakarra, zu eta bion artean baziren bertze anitz gehiago. Jon Muñoz

Orain fabrika ere **arriskutan jarri** du! Fernando Rey

Haren asmoa, dakigunez, Tomskera iristea zen beste gatibuen artean nahasirik, horrela hiri garrantzitsu horretara sartuko baitzen haren alderrietan hara eta hona zebiltzan aitzindari tatariarren atzaparretan erortzeko **arriskutan jarri** gabe. Karlos Zabala

Inolako **arriskutan jarriko** zaituen ezer ez iezadazu idatzi... Ramon Etxezarreta

Eta egiaz miresgarria da pertsona horiek, beren bizia **arriskutan jarriz**, besteei lagundu eta salbatzeko egiten duten lan prestu eta sakrifikatua. Josu Zabaleta

"Arren, ez zaitez nigatik **arriskutan jar**. Jon Muñoz

Berriz ere **arriskutan jarri** behar al nuen neure burua -aspaldi hartan egin bezalaxe- ondorioak ebazteko garaian? Karlos Linazasoro

Txalupa-ertzera makurtzen zenean eta gorpuari heldu, txalupa balantzaka hasi eta iraultzeko **arriskutan jartzen** zen. Gotzon Garate

Neure Bizitza Berria **arriskutan jarri** gabe, nola erakutsi neu nintzela balentriaren egilea? Hasier Etxeberria

31 *arriskuz kanpo*

Irribarre egin eta tente jarri da, harro, zorionak jasotzeko prest, eta **arriskuz kanpo** dagoen honetan, gurasoen aurpegia aztertu du, pasatako kezkaren aztarna bila. Itziar Otegi

Fredegario ez da sartzen orduan egin ziren abenikoen xehetasunetan; baina erregeak berretsi egin zituen bere gutunen bidez, eta Austrasia **arriskuz kanpo** geratu zen. Iñaki Iñurrieta

Aments bat ote? Ala aintzinbeldur bat? Xahubide hortan, ez gira **arriskuz kanpo**. Herria

32 ***bizi arrisku*** *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Arrisku bizian zaudek, **bizi arriskutik** gertuago igarotzen den egun bakoitzeko. ETC-literatura, saiakera

Plazatik alde egin behar zuela, zubitik hurbil egotea hertsiki debekatuta zegoelako eta "**bizi arriskua**" zegoelako, horrela egin ezean. ETC-literatura, saiakera

Ez dago espirituaren gauzetan ez nekerik, ez zaharkitzerik, ez **bizi-arriskurik**, ezta mundu-difamatzaile denik ere, haren arteak isilpean babestu ez duenik. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, presoak bihotzekoa izan duenean ere, familiak ez du inolako informaziorik jaso, "nahiz eta euren senitartekoak **bizi arrisku** nabarmena izan duen". ETC-prentsa

Zappinari esker, iruditu zitzaidan apokalipsia etxeratua nuela **bizi-arriskurik** gabe, munduko hizkuntzetan emana gainera. ETC-prentsa

Oso larri dago baina, Michol Gonzalez Gurutzetako Ospitaleko mediku zuzendariak azaldu zuenez, atzo ez zuen ematen **bizi arriskurik** zuenik. ETC-prentsa

Kolektibo hori kondenatuko genuke muturreko kalteberatasun, desoreka eta **bizi arrisku** handiko egoera batera. ETC-prentsa

Nahiz eta mekanismoak ezberdinak izan, erreakzio anafilaktoideak klinikoki ia ezin dira bereizi anafilaktikoengandik eta **bizi arrisku** berbera daukate. ETC-zientzia, zuzenbidea

Indikazioak: **bizi-arriskuko** kasuetan soilik erabili behar da: shock anafilaktikoan, asma-krisian eta bihotz-gelditzean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Triajeak **bizi arriskua** eta konplikaziorik ez agertzea du helburu. ETC-entziklopedia

33 ***bizi arriskuan*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Aitaren heriotza goiztiarra, Canetti bera **bizi arriskuan** jarri zuen istripua, Lehen Mundu Gerrako sarraskiak, eta abar. ETC-literatura, saiakera

Egundoko arinen abiatu nintzen kanpainako arropa jantzi eta nire Cetmea hartzen, **bizi arriskuan** sartzen ahal nintzelako pozak zoratzen. ETC-literatura, saiakera

CCOO sindikatuko osasun idazkari Jesus Uzkudunek salatu zuen basoan lanean ari direnentzat ez dagoela prebentzio neurririk, eta **bizi arriskuan** jarduten dutela, oso baldintza txarretan. ETC-prentsa

Jacqueline Caniguan Azkintuwe egunkari maputxeko editoreak azaldu duenez, maputxeena "**bizi arriskuan** dagoen kultura da". ETC-prentsa

Benetan, ez dut ulertzen, **bizi-arriskuan** ibiltzen direlako. ETC-prentsa

Orain arte ez da inor arrisku bizian, **bizi arriskuan**, egon, nahiz eta presio psikologiko salaketa zenbait izan den. ETC-prentsa

34 *bizia galtzeko arrisku*

Gauza guztiz sakratuetara hurbiltzean **bizia galtzeko arriskua** dutenez gero, egizue honela, hil ez daitezen. Elizen arteko biblia

Historia horretan Bibliaren kontrabandoak izan duen garrantzia jaso beharko da: higanotek, inkisidoreen atzaparretan **bizia galtzeko arriskuz**, Bibliak pasatzen zituzten Baionako portutik Pasaiara. Anjel Lertxundi

Ez du **bizia galtzeko arriskurik**; baina beldur handia dago ez dela berriro bere senera itzuliko; errudunaren arrastorik ez da. Josu Zabaleta

Ez zen alabaina politikan sartuko, hain nekez zurkaizten zitzaion **bizia galtzeko arriskuan**. Itxaro Borda

Segurtasuna dute helburu, egunero **bizia galtzeko arriskuan** egoten baitira. Berria - Ekonomia

Entzutearena egiteaz batera, arazorik gabe pentsa zezakeen gizonak, esate baterako, Scheherazade ugari dagoela munduan, batik bat ospitale, zoroetxe eta itxarongeletan, baina gehienetan ez dutela beren istorio tristeekin inor liluratzerik lortzen, ezta eguna argitu orduko **bizia galtzeko arriskuari** ihes egiterik ere. Imanol Zurutuza

35 ***biziaren arriskuan*** *iz* hiltzeko arriskua. ik **arrisku 10**.

Denbora luze da beha dagoenarentzat, bereziki **biziaren arriskuan** zeudelarik. Marzel Etxehandi

Ezlekurik bihurrienetan, legez kanpotik, askoren **biziaren arriskuan** eta pozez zoratzen ikusten ohitu eta gero, [...]. Iñaki Segurola

Lekuko batek erranak badu beste bizirik eta indarrik, bereziki bere **biziaren arriskuan** ibili delarik. Herria

36 ***heriotza arrisku*** *iz* hiltzeko arriskua. ik **arrisku 9**.

Gertatu zenaren arrazoia aita Frantziskoganako mespretxua eta haren semeenganako gorrotoa zenez, alaba oso larri gaixotu zen, **heriotza arriskuraino** gaixotu ere. Askoren artean

Berak atera ninduen, eta aterako nau aurrerantzean ere, horrelako **heriotza-arriskutik**; berarengan dut jarria itxaropena, eta onik aterako nau hemendik aurrera ere. Elizen arteko biblia

Komisariatik atera eta hik aipatutako hamalau hilabete, bi aste eta bost egunak **heriotza-arriskuan** pasa nitian nik, traidorea eta salatzailea omen nintzelako. Bernardo Atxaga

37 ***hiltzeko arrisku***

Izan ere, bitartean, Federicoren soldatako diru apurrak denak bisitetan xahututa, goseak **hiltzeko arriskuan** ere baginen, ezin jakin. Pello Lizarralde

Harry Potter Hogwartsera itzultzen bada, **hiltzeko arriskuan** jarriko da. Iñaki Mendiguren

Basoko izpirituak etorri zitzaizkion burura, une bat lehenago guardak "basoko zarata mutuak" deitu zituen haiek: hildakoa topatu zuen goizean eta, haren gorpuaren bila zihoala, berriz, norbait **hiltzeko arriskuan** egon zen. Joxemari Urteaga

'Bizi dena **hiltzeko arriskuan** dago bazkaldu orduko, eta bazkaldu ondoren ere bai,' ekingo dio Bobbik bere umore beltzari, 'beraz hobe lasai bazkaltzea'. Joseba Sarrionandia

Galdetzen badigute: baldin eta, desleialkeriaren bidez, berehala **hiltzeko arriskutik** gizon bat libra ahal baledi, bere izana atxikitzeko arauak ez ote lioke aginduko, garbiki, desleial izatea? Piarres Xarriton

Eta nahi banuen han egin nezakeela lo, hotel batean ostatu hartuz gero neure burua **hiltzeko arriskua** bainuen. Ramon Saizarbitoria

Bai, adiskide ederra, badut nire eskolume horren senarrak oinordekorik gabe **hiltzeko arriskurik** ez dukeelako lehen zantzua. Jon Muñoz

Banaketa-operazioa egin ezean **hiltzeko arrisku** handia dute biek; banaketa-operazioa egiten bada, ostera, bietatik ahulena hilko da. Askoren artean

Baina onartzen duten une berean, **hiltzeko arriskuan** egonen litzateke Eres herria. Berria - Euskal Herria

Ama ondoan izanda ere, kumeen erdiek bi urte bete aurretik **hiltzeko arriskua** dute. Berria - Harian

Cavailles-ek, ordea, bataila-zelaian **hiltzeko arriskua** hartzen zuen artean, Logika bat idazteari ekin zion, eta idatzi gabeko Etika bat eskaini zigun horrela. Berria - Kultura

Elurra ere kendu zioten gainetik, baina laster estali zen berriro, eta maitagarriak konturatu ziren hotzez **hiltzeko arriskuan** zegoela. Julen Gabiria

-Ardiekin mendian ibiltzen nintzenean, **hiltzeko arriskuan** izaten ziren aziendak sugeren batekin topo eginez gero. Xabier Aranburu

38 ***kanpo arrisku***

Kanpo-arriskuen kezkarik gabe. Aingeru Epaltza

39 ***kapital arrisku***

Hala berrikuntza hedatzea nola enpresa taldeak sortzea helburu duten politikak finantzatzeko **kapital-arriskuak** funtzio erabakigarria izatea nahi du Eusko Jaurlaritzak. Berria - Ekonomia

1979-an bultzatu dugu gain gainetik Herrikoa, **kapital arrisku** sozietatea holako lanaren egiteko. Herria

40 ***lan arrisku*** *iz* langile batek laneko istripu bat edo lanaren ondorio den eritasun edo gaitzen bat izateko duen arriskua.

Irakaskuntzan **lan arriskuen** prebentzioari garrantzia gutxi ematen zaiola ohartuta, gai horren inguruan antolatu du EILAS sindikatuak aurtengo udako ikastaroa. Berria - Euskal Herria

Hildako langilea «eskarmendu handikoa» zela azpimarratu zuen diputatuak, bere hitzetan, **lan arriskuen** prebentzioari buruzko formakuntza baitzuen. Berria - Ekonomia

41 ***laneko arrisku*** *iz* langile batek laneko istripu bat edo lanaren ondorio den eritasun edo gaitzen bat izateko duen arriskua.

Laneko arriskuak saihesteko liburuxka argitaratu berri du Osalanek . Berria - Ekonomia

42 ***uholde arrisku***

Baionako Herriko Etxeak **uholde arriskua** iragarri zuen astelehen gauerako. Berria - Harian

Uholde-arriskua handiagoa izan ohi da -zioen Mitxelenak- euri asko denbora laburrean egiten badu. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

arrisku bat (40); **arrisku bizian** (27); **arrisku eta guzti** (11); **arrisku gehiago** (23); **arrisku gehien** (13); **arrisku gutxi** (12); **arrisku gutxiago** (19); **arrisku guztiak** (11); **arrisku handia** (114); **arrisku handia dago** (17); **arrisku handiagoa** (110); **arrisku handiagoa dute** (48); **arrisku handiagoa dutela** (12); **arrisku handiak** (21); **arrisku handian** (22); **arrisku handiena** (15); **arrisku handiko** (31); **arrisku handirik** (29); **arrisku hori** (80); **arrisku horiek** (16); **arrisku horren** (14); **arrisku larria** (13); **arrisku larrian** (28); **arriskuak arrisku** (13); **egiteko arrisku** (14); **erortzeko arrisku** (11); **galtzeko arrisku** (18); **garatzeko arrisku** (17); **garatzeko arrisku handiagoa** (14); **izateko arrisku** (38); **izateko arrisku handiagoa** (16); **zer arrisku** (18)

arriskua areagotzen (11); **arriskua badago** (11); **arriskua dago** (99); **arriskua dagoela** (74); **arriskua dagoelako** (13); **arriskua dela** (11); **arriskua du** (32); **arriskua duela** (19); **arriskua dute** (33); **arriskua egon** (21); **arriskua handia** (25); **arriskua handiagoa** (18); **arriskua handitu** (14); **arriskua handitzen** (30); **arriskua hartu** (25); **arriskua ikusi** (11); **arriskua ikusten** (18); **arriskua izan** (14); **arriskua izango** (14); **arriskua oso** (19); **arriskua sortzeko** (16); **arriskua sortzen** (12); **arriskua zegoela** (25); **arriskua zegoen** (15); **benetako arriskua** (11); **bihurtzeko arriskua** (19); **desagertzeko arriskua** (16); **duen arriskua** (19); **egiteko arriskua** (72); **erortzeko arriskua** (20); **galtzeko arriskua** (59); **garatzeko arriskua** (27); **gelditzeko arriskua** (27); **geratzeko arriskua** (22); **gertatzeko arriskua** (26); **hartzeko arriskua** (11); **hiltzeko arriskua** (16); **ihes egiteko arriskua** (27); **izateko arriskua** (136); **izateko arriskua handitzen** (14); **kutsatzeko arriskua** (23); **minbizia izateko arriskua** (15); **pizteko arriskua** (12); **sortzeko arriskua** (17); **uzteko arriskua** (11); **zabaltzeko arriskua** (11)

arriskuak arrisku (13); **arriskuak hartzen** (11); **arriskuak saihesteko** (12)

arriskuan diren (18); **arriskuan egon** (38); **arriskuan ikusi** (13); **arriskuan jar** (49); **arriskuan jarri** (115); **arriskuan jarri gabe** (14); **arriskuan jarriko** (52); **arriskuan jarriz** (19); **arriskuan jartzea** (35); **arriskuan jartzeko** (12); **arriskuan jartzen** (121); **batasuna arriskuan** (11); **bizia arriskuan** (63); **bizia arriskuan jarri** (15); **biziak arriskuan** (11); **bizitza arriskuan** (37); **burua arriskuan** (14); **desagertzeko arriskuan** (33); **egiteko arriskuan** (13); **erortzeko arriskuan** (12); **galtzeko arriskuan** (56); **geratzeko arriskuan** (13); **hiltzeko arriskuan** (24); **izateko arriskuan** (18); **osasuna arriskuan** (18); **segurtasuna arriskuan** (20)

arriskuaren aurrean (15); **arriskuaren berri** (11)

arriskuari aurre (13)

arriskuaz ohartarazi (45)

arriskuei aurre (13)

arriskuen berri (13); **arriskuen prebentziorako** (11); **lan arriskuen** (27)

arriskurik ez (112); **arriskurik gabe** (70); **arriskurik gabeko** (14); **arriskurik handiena** (24); **arriskurik hartu** (20); **egiteko arriskurik ez** (11); **ez dago arriskurik** (22); **inolako arriskurik** (30); **inongo arriskurik** (13)

arriskutik kanpo (17)

arriskualdi *iz* arrisku une edo denbora.

Esate baterako, giza genetika harturik hizpide, garbi dago giza genoma dezifratzeak hainbat **arriskualdi** ekar ditzakeela ondotik. Juan Garzia

Antonio Díaz, Antonio Ribera y Díaz de Herediaren aitonaren aita, alegia birraitona, gizon ausarta zen, adoretsua oso, zalantzaldietan beti aurrera jotzen zuena, **arriskualdietan** sekula ez atzera. Felipe Juaristi

Leiala ez denaz **arriskualdietan** fidatzea, hortz hautsiaz jatea eta zango bihurrituaz ibiltzea bezala da. Elizen arteko biblia

---

arriskugabe *izond* arriskurik ez duena.

Nahikoa baieztapen **arriskugabea** da: gerraren norgehiagoka beroan, eraso militarra ondo burutzea bezain garrantzitsua da arerioari hitza ebastea. Iñigo Aranbarri

Izorratzeagatik esaten zuen, ez zuen ni handik bidaltzeko intentziorik, bai baitzekien **arriskugabea** nintzela, "oilobusti" bat, ni bezalakoengatik esan ohi zuen legez. Xabier Mendiguren Elizegi

Osterantzean, hain **arriskugabe** dirudien olio bare horri haserrealdi subizikorik sor dakioke: eskolako gaztetxoek ere badakite hori. Juan Garzia

Egin zituen bi garraio horiek xinplekeriak iruditzen zitzaizkion orain, ume joko antzekoak, baina arrazoiketari itzulia emanez "denak erraza, **arriskugabea** dirudi harrapatzen zaituzten arte". Iñaki Zabaleta

Nire oheko uharte bero **arriskugabean**, gauerdiko Swansea loakartua jiraka eta bueltaka zebilela gure etxearen inguruan, behin batean asmatu nuen istorio bat etorri zitzaidan harlauzen gainean zirimolaka. Koro Navarro

---

arriskugarri *izond* arriskutsua, arriskua sortzen duena.

Batzuk -poliziaren ustez **arriskugarrienak**, beharbada- ziegetan sartu zituzten, eta gainezka zeuden. Rafa Egiguren

Horrek guztiak kolokan utzi izan du komunitatearen demokratizazioa eta bertikalismo **arriskugarria** nagusitzen da. Berria - Euskal Herria

Emakume batentzat maitasunaz ari dela esatea **arriskugarria** da, oso. Ana Urkiza

Morenteren ahotsa apurtu samar entzuten da pasarte batzuetan, baina maisua da ertzean dabilenean muga **arriskugarri** hori ez gainditzeko. Berria - Kultura

Hutsaren lurralde **arriskugarrian**. Hasier Etxeberria

Ez naiz zer-gerta-ere ari, ohar zaitezte zein larri eta **arriskugarri** den erasotzen dizuen gaixotasuna, ez baduzue zuen osasunaren aldeko erabakia hartzen. Jon Alonso

Gauza kezkagarri eta **arriskugarria**, doi-doi irauten baitute, hari baten bidez edo, argiarekin eta fedearekin bat eginik. Joan Mari Lekuona

Zoritxarrez, mekanismoak ez ditu bereizten germen **arriskugarriak** eta ordezko pieza onuragarriak. Irene Aldasoro

Ez dagoela, esan ohi zuen, alargundutako musa bat baino gauza **arriskugarriagorik**. Joxean Agirre

Aurkitu beste sistema bat, giza espeziearentzat hain **arriskugarri** ez dena! Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)**
> **arriskugarri batean** (2)
> **arriskugarria da** (4); **arriskugarria izan** (5); **arriskugarria izan daiteke** (4); **arriskugarria zela** (3); **oso arriskugarria** (3)
> **bezain arriskugarriak** (2)

---

arriskugarriki *adlag* modu arriskutsuan.

Bestelako arrazoi batzuk zirela medio, beren adostasun bakarra zen hipotesi **arriskugarriki** sinesgarri baten kontra azaltzea. Jon Alonso

---

arriskugarriro *adlag* modu arriskutsuan.

Ez zion axola Snapek aurpegia zurrundu izanak, eta haren begi beltzek **arriskugarriro** dir-dir egiteak. Iñaki Mendiguren

---

arriskugarritasun *iz* arriskutsu izatearen nolakotasuna.

Antoine Sollacarok dio Frantziako Gobernuak «badaezpadako presoak» direla argudiatzen duela, zigorraren zain daudela eta bestetik, «kasuz kasu» erabakitzen direla irizpideak, «ustezko **arriskugarritasunean** oinarrituta. Berria - Mundua

Arriskugarritasun Sozialaren Legeak zelan eragin zuen herritar homosexualen bizimoduan? Berria - Euskal Herria

---

arriskupe *iz* arriskuaren menpekoa.

Honela, osmanliarrak, Ekialdeko Erromatar Inperioaren mugaren kontra jarriak, hobeto moldatu ziren haien ekialdera zeuden karamanliarrak baino; Austriak Bavariak baino arrakasta distiratsuagoa izan zuen, otomandar turkiarren erasoaldi luzearen **arriskupean** egon zirelako. Iñaki Mendiguren

Hemen zain egotea, ea noiz askatzen nauten, betiko kartzelaren **arriskupean** geratzea duk; gutxiena gerra bukatu arte preso egotea... Ihes egin beharra zaukaat, ez zagok beste erremediorik". Koro Navarro

Otsoen edo lehortearen **arriskupean** ibiltzen dira beti artzainak, eta horrexek egiten du artzaintza are bizigarriagoa. Xabier Aranburu

Ahanzturaren **arriskupean** egonen ez ziren euskarrietara isuri zituen orduan. Aingeru Epaltza

Euskal preso politikoak eta ikusten joaten zaizkien senide eta lagunak heriotza **arriskupean** daude. Berria - Euskal Herria

---

arriskupean *adlag* arriskuan.

Lanak eten egin zituzten orduan eta, aurrerantzean **arriskupean** ez egoteko, burdinbidea Boscaccion gelditu zuten, gure etxetik zortzi kilometrora. Koldo Biguri

Oheetako bat **arriskupean** omen dago; zaldun ezezaguna etzaten da han, beldurrik gabe. Juan Kruz Igerabide

Nik, noski, ezetz esan behar, nire bizia **arriskupean** zegoela eta ez nuela inola ere nahi zuri ezer gertatzerik. Xabier Mendiguren Elizegi

Nazio Batuen Erakundeak Afganistanen duen ordezkari berezi Lakhdar Brahimik erakundearen Segurtasun Kontseiluan atzo aurkeztu zuen txostenean esaten denez, Konstituzio berria onartu izanak herrialdeari bultzada garrantzitsua eman arren, normaltze prozesua **arriskupean** da. Berria - Mundua

---

arriskutsu 1 *izond* arriskuz betea.

Harriz txikiz estalitako pista **arriskutsuetan** amaituko da gaur 2004ko Munduko Rally Txapelketa, Australian. Berria - Kirola

Gutuna berez da **arriskutsua**, norbaiti adierazi nahi zaion baina beste norbaiti ezkutatu nahi zaion zerbaiten froga. Jon Muñoz

Bagenekien Lauaxetarentzat **arriskutsua** zela han sartzea, han bat baino gehiago egon baitzitekeen hura ezagutuko zuenik. Juan Luis Zabala

Egiazki, aulkia **arriskutsua** gertatu zitzaion harekin traturik izan zuen orori; ez ziren ongi sentitu haren besoetan, ezta hurrik ere, eta sekula ez zuten nahi izaten gogora ekartzerik zer-nolako piura ageri zuten aulkian eroso hondoratzen saiatu izan ziren aldietan edota ostera aulkitik altxatzen borrokatu zirelarik. Mirentxu Larrañaga

Atearen parean geratzea **arriskutsuegia** zen (behingoagatik beste norbaitekin etorrita ere); bere logelan beldurtu egingo nuen. Arantxa Iturbe

Brasil oso **arriskutsua** ei da. Xabier Amuriza

Horrek, ordea, ez du esan nahi zu marxista-leninista **arriskutsua** ez zarenik. Jon Maia

Nik erraten nion kontuz ibiltzeko, ez ginela ohituak, toki **arriskutsua** zela.. ø denbora berean, halere, haren kuraia miresten nuelarik. Daniel Landart

Indios fuera! egiten genion oihu, gizonena baino indioena zen galapa **arriskutsu** hura behingoz amai zezan. Iñigo Aranbarri

Haren itxura **arriskutsuaz** ohartu direnean, inguratu egin dute guardiek. Joan Mari Irigoien

2 *hondakin arriskutsu*

Hondakin arriskutsuak berrerabiltzeko akordioa sinatu dute 22 enpresak. Berria - Euskal Herria

Orain urte batzuk, **hondakin arriskutsuak** tratatzeko teknikari bat izatea gastu moduan hartzen zuten enpresek, baina orain badakite hori beharrezkoa dela. Berria - Euskal Herria

Diotenez, Zabalgarbik urtero 23.000 tonatik gora **hondakin arriskutsu** uzten ditu. Berria - Harian

3 *Objektu Bereziki Arriskutsu* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Objektu Bereziki Arriskutsu (OBA) bat Lurretik gertuko objektu bat -kometa edo asteroidea- da, bere orbitaren aldi batean Lurrera era nabarmenean hurbiltzen dena eta talka eginez gero, eskualde edo mundu mailako kalte nabariak eragin ditzakeena. ETC-entziklopedia

4 *zabor arriskutsu* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

1992. urtetik dago indarrean, eta **zabor arriskutsuen** mugimendu legez kanpokoak eragotzi nahi ditu. ETC-prentsa

Birziklatu ezin diren hondakinak, beltzera, eta hara botatzen dira hezurrak ere: birzikla daitekeena, urdinera: eta **zabor arriskutsuak**, gorrira. ETC-prentsa

Zabor arriskutsuak bero-bero iritsi behar zuen, solidotu aurretik arrastorik utzi gabe errioko ur ilunetan hondoratu zedin. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

abentura arriskutsu (7); **arriskutsu bihurtzen** (8); **oso arriskutsu** (7)

apustu arriskutsua (9); **arriskutsua egin** (10); **arriskutsua gerta** (8); **arriskutsua iruditzen** (9); **arriskutsua izan** (101); **aurkari arriskutsua** (12); **aurrekari arriskutsua** (9); **bezain arriskutsua** (16); **egoera arriskutsua** (7); **ez da arriskutsua** (14); **gizon arriskutsua** (7); **hain arriskutsua** (10); **oso arriskutsua** (127); **oso arriskutsua izan** (9); **talde arriskutsua** (13)

are arriskutsuagoa (8); **arriskutsuagoa da** (18); **askoz arriskutsuagoa** (7); **baino arriskutsuagoa** (24)

arriskutsuak ditu (7); **arriskutsuak izan** (22); **harreman arriskutsuak** (20); **hondakin arriskutsuak** (8); **jokalari arriskutsuak** (8); **oso arriskutsuak** (28)

modu arriskutsuan (9)

arriskutsuegia da (7)

izaki arriskutsuen azterketarako (8)

arriskutsuena da (7)

arriskutsutzat jo (8)

---

arriskuzale *iz* arriskua maite duena.

Baina ez zen egia, Martin handinahia zen, **arriskuzalea** eta uste itsua zuen bere patuan. Koro Navarro

Arriskuzalea haiz gero! Pako Aristi

Ustelak eta harrak berenganatuko dute, **arriskuzaleak** bizia galduko. Elizen arteko biblia

---

arritmia *iz* bihotz taupaden maiztasunaren erregulartasunik eza.

Askatasunak jakinarazi zuenez, iragan igandean Larredonda ospitalera eraman behar izan zuten bihotz **arritmiak** zituelako. Berria - Euskal Herria

-Arritmia arin bat duzu, eta zaindu beharra duzu. Joan Mari Irigoien

Ez zekien txortan, ez zekien ezta oinarrizko zenbait kontu ere, esaterako, gizonak ez duela jokatu behar bere zakila **arritmiak** jotako pistoi bat balitz bezala, ezpata-kolpeak jo, jo eta jo. Karlos Zabala

Doinu hartan **arritmia** ukitua zegoen nonbait. Fernando Morillo

Berriro **arritmia** itogarri hau. Anjel Lertxundi

---

arritmiko *izond* erritmorik ez duena.

Diastole **arritmikoek** maitasunarekin zerikusi handia dute, berez sortzen dira, berez nekatzen zuten gizona poemak idazten zituen bitartean Berria - Kultura

Aitaren pauso **arritmikoa** gerturatzen entzun du. Eider Rodriguez

---

arro 1 *iz* amildegia, haitzarteko hutsunea.

Urederraren **arroaren** gainetik bizkarra konkortutako munstro eskerga gisa, edozein mementotan gain hartatik behera amiltzekotan bailegoan, mehatxu itxura nabarmena hartu zuen. Txillardegi

2 *iz* ibarra, harana.

Gibelera so egiten dut eta ederresten Iruñeko **arroaren** edertasuna et hiriaren hedadura. Piarres Aintziart

Eta urrutira, azkeneko etxeen ondoren, hiriaren luzapenaren ondoren Isonzo-ren **arroa** ageri zen mendiaren eta ordokiaren artean; Isonzo, bere hondoko harri xehea eta bere ur urdin leiharrezko aldaparoekin, Tagliamentorenen hain berdinak denak. Josu Zabaleta

3 *iz* ur barrutia, ibai batek eta bere adarrek hartzen duten lur eremua.

Oria **arroa** bereganatu zuten, bai, baina ez ziren saiatu hortik mendebaldera zabaltzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Baserri hau Antzuolakoa izan arren Urola **arroan** dago, ez Deba **arroan**. Iñaki Segurola

Han Urumearen **arroak** bezalaxe, nik neuk ere ezkerretara jo nuen; eta ibaitik, "Kristobaldegi"eneko etxe-multzoa ikusi nuen. Txillardegi

4 *arro barneko sedimentu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arro barneko sedimentuak arro hidrologiko arroan bertan, prezipitazio edo hauspeatze hauspez sortutako sedimentu mota da. ETC-entziklopedia

5 *arro endorreiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arro hidrologiko oso bateko ibaiak ez badira itsasoratzen, batik bat, aintziraratzen baitira, **arro endorreiko** bat osatzen dute. ETC-entziklopedia

6 *arro hidrografiko* *(corpusean ez dago; ETCn **54** agerraldi)*

Horretarako, biodibertsitatearen eta ekosistemen defentsa, **arro hidrografikoen** babesa eta arrain-sarden mantenua ezinbestekotzat jotzen ditu. ETC-prentsa

Erreka unitate **arro hidrografiko** gisa kontsideratu behar da eta ez ibai bezala bakarrik. ETC-prentsa

Buenaventurak bederatzi **arro hidrografiko** ditu, eta mundu osoko eremurik euritsuenetako bat da. ETC-prentsa

Horregatik, erabiltzaileek ura garestiago ordaindu behar badute, izan dadila lurrak erosteko, **arro hidrografikoetan** oso hausgarriak diren eremuak erosteko, denen artean. ETC-prentsa

Demarkazio hidrografikoa: **arro hidrografiko** bakar batek edo elkarren ondoko hainbatek osatzen duten lehorreko eta itsasoko eremua, arro horiei lotutako lur azpiko urak, tartekoak eta itsasertzekoak barne. ETC-zientzia, zuzenbidea

Proiektu honek ibaiaren **arro hidrografiko** guztiaren emariaren % 90 erabiliko du eta horrek iskanbilak sortu ditu bertako komunitateetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezaugarri hidrologikoei dagokienez, aipatzekoak dira ipar-ekialdean Zirauntza ibaia, eta erdialdean Zadorra ibaia, Araban **arro hidrografiko** handiena duen ibaia. ETC-entziklopedia

Arro hidrografiko txiki batean dago kokatuta. ETC-entziklopedia

Itsaso Baltikoak **arro hidrografiko** baten itxura du, bi ibaiadar dituena, Botniako golkoa eta Finlandiako golkoa. ETC-entziklopedia

Ondorio horretara iritsi ziren 148 herrialde mugakideren 200 **arro hidrografiko** baino gehiagotako ur harremanak aztertu eta gero. ETC-entziklopedia

7 *arro hidrologiko*

Tratatu bako hondakin-urak, atmosferaren kutsadura, industriek isuritako hondakinak eta txarto kudeatutako **arro hidrologikoetatik** iristen diren arroka sedimentarioak dira, hein handi batean, horren errudun. Berria - Gaiak

8 *arro sedimentario* *(corpusean ez dago; ETCn **56** agerraldi)*

Arro sedimentarioak lurrazaleko topografia baxuko guneak dira non sedimentuaren metaketa gertatzen den, plaken tektonikarekin erlazio genetiko zuzena izanik. ETC-entziklopedia

Ebroko sakonunea deritzan eskualde hori duela 150 bat milioi urte arte sakonera handiko itsaso baten azpiko **arro sedimentarioa** zen. ETC-prentsa

Aljeria eta Libia inguruko akuifero handi horiek antzinako **arro sedimentarioei** lotuak daude. ETC-prentsa

Norabide-faila aktiboen eraginez, ertz transformatzaileetan garatu gabeko plataformak, **arro sedimentario** sakonak eta ur gaineko eremuak irregularki tartekatuta agertzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Teknika hori erabiltzen da, adibidez, **arro sedimentarioak** aztertzeko eta etenune bidez ebakitako unitate estratigrafikoen geometria adierazteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antzinako arku hertziniarrarekin bat dator, baina, bere garaian desegin eta higatu egin zenez, gaur egun goi-ordoki baxuak eta mendi ertainak dira, zokalo hertziniarraren azaleratzeak, hain zuzen, **arro sedimentario** ugariren bidez banatuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *ibai arro*

Ur Zuzendaritzako teknikarien arabera, **ibai arroen** uholde eremu naturalak eraikinez "inbadituta» daudelako gertatu dira asteburuko kalteak. Berria - Euskal Herria

Egoera berezia ekarri zuen horrek, ia hilabete eta erdi iraun zuena: Aizkorritik Murumendira eta Murumenditik Erniora, Oria eta Urola **ibai arroen** lurrak bereizten dituen lerroak banatzen zituen gudako talde biak ere, baina lerro hura ez zen fronte bihurtu, ia ez zen lubakirik egin eta apenas tirorik bota: zain zeuden denak, zer gertatuko. Xabier Mendiguren Elizegi

10 *Mediterraneoko arro*

Hitz bat, hark adierazten duen gauzakia herrian sartzearekin batera sar daiteke hizkuntza batean; hala, kalamua, adibidez, **Mediterraneoko arroan**, berandu sartu zen, eta are beranduago Iparraldeko herrialdeetan; eta aldi bakoitzean, landarearekin batera iristen zitzaien landare horren izena. Isabel Arrigain

11 *mendi arro* *(corpusean **mendiarro** soilik) iz*

Mendiarro maldatsuak belarrez tapizaturik zeuden; baina ordu hartan dena grisa zen, eguzkia ezkutatu egin baitzen, eta behean, urruntasunean, gizakien bizilekuetako argien zohardura ikusten zen. Agustin Otsoa

12 *ozeano arro* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Ozeano arroa, beheragune oso zabal bat da, erlatiboki uniformea, gutxi gorabehera inguru biribildua duena, ozeanoen ohantzea osatzen dutena. ETC-entziklopedia

Gandorra Arabiako kostaldetik 400 km-ra kokatuta zegoen eta bien artean Hawasina deritzon **ozeano-arroa**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sumendi askok ozeano-gandorren sarearekin bat egiten dute, baina batzuk failetan zehar edo **ozeano-arroetako** lineamenduetan daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

Teoria horren arabera, Lur urtua hoztean agertu ziren zimurrak, sagar erreetan bezala, eta zimur horien eraginez sortu ziren **ozeano-arroak** eta mendikateak. ETC-literatura, saiakera

13 *urratze arro* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Urratze arroa urratze deformazioaren ondorioz sortutako arroa da; deformazio hori albo-mugimendua erakusten duten faila sub-bertikalen bidez moztuta dauden lurrazal edo litosfera blokeetan gertatzen da. ETC-entziklopedia

---

arroa *(orobat **arroba** g.er.)* **1** *iz* pisu edo neurri zaharra, hamabi kilo eta erdiren baliokidea.

Hortaz, maniako baten moduan astindu zuen labana, gainera zetorkion hamar **arroako** txerriaren kontra. Patxi Iturritegi

-Hamar bat **arroa** neguko patata ere baditugu, espeziak gordetzeko gelan. Josu Zabaleta

Eta kintalak kintalaren, **arroak arroaren** eta anegak anegaren neurrikoak ote ziren zehaztea zen Mateoren zeregina, eta neurriok izkiriatzea nirea. Edorta Jimenez

Abigailek, bizkor, hartu zituen berrehun ogi, bi zahagi ardo, bost ahari burduntzian erreak, bost **arroa** gari xigortu, ehun mahaspasa-mordo eta berrehun piku-opil eta astoen gainean ezarri zituen. Elizen arteko biblia

Sinetsi nahi al didazu, jaun André, ezen Lisboako portuan egun bat galdu genuela, bertako ur ezin geldiagoetan masta nagusitik **arroako** zaku bat gari jaurtitzeko, eta erori zen tokiaren inguruan zirkulu baten trazatzeko? Joan Mari Irigoien

Izango zituen berrehunen bat kilo edo hirurogei **arroa**, halako zer edo zer. Karlos Linazasoro

Ez zegok hi bezalakorik, Nemesio, heldu, hamar **arroako** harria jasoko huke gainean bi ahari jarrita! Pako Aristi

2 irud/hed

-Orain bertan, erre beharko dira hezur **arroa** batzuk hilobi komunean leku egiteko. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ibaiaren arroan** (3)

---

arroaka *adlag* arroa neurri harturik.

Bixigarriak, mota bateko eta bestekoak, libraka ez baina **arroaka** erosi zituztela zirudien, eta agerian jarriak zeuden denak kutxa batean. Patxi Ezkiaga

---

arroba[1] ik **arroa**.

---

arroba[2] ik **a 2**.

---

arrobatu, arroba(tu), arrobatzen du *ad* ebatsi, ostu, lapurtu.

Handik **arrobatu** dute hiru eta zazpi miliunen haineko diruketa, islamisteri Iran, Siria eta Libaneko Hezbolak ekarria zietena. Herria

Aitzineko hilabeteetan **arrobatu** lau bankuak ebatserrazagoak zirena? Itxaro Borda

Donibane Lohizunen,hiri hortako joaieria ezagutuenetarik bat, merkatu plazatik hubil, **arrobatua** izan da joanden larunbatean, eguerditik eta aratsaldeko biak arte hortan. Herria

Zeren iduritzen baitzitzaidan ezen bihotza hautsi eta **arrobatu** zidala, eta haren traizioneak ez zuela bertze pagamendurik merezi. Joan Mari Irigoien

---

arrobatzaile *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* lapurra. ik **ebasle**; **ohoin**.

Handik bi egun, telefono dei labur batez Gaetanok poliziari deiturik, abisatu dute Lo Faso Paolaren etxebizitza zaintzen zutelarik hara sartzen eta ikertzen harrapatu dutela, eta etxe **arrobatzaile** bezala atxilotu. ETC-literatura, saiakera

Normandian 1,2T aluminio hautsa ebatsiak izan direla eta, polizak uste du ETA izan dela **arrobatzailea** bere lehergailuen fabrikatzean baliatzeko. ETC-prentsa

Euskaraz ele anitz dago lagun hurkoa bere ontasunaz desjabetzeko ekintza azaltzeko: ebasleaz gain, ohoina, lapurra, **arrobatzailea**, ostutzailea dibertsitate linguistiko horrek ederki frogatzen du gauzak norbaiten borondatez galtzeko arriskua eta lanjerra nolakoa zen orduan. ETC-prentsa

---

arrobatze *iz* ebastea, ostea, lapurtzea.

Errexena zen hango europearren ontasunen funditzea eta **arrobatzea** baina izanen bide dute zeregin, bereber herri horren xutitzeko. Herria

Egun hotan arrastatu dute lan tzar horietan karraskan ari zen gizon gazte bat, hogoita-zenbait etxe **arrobatze** aitortu ere baititu. Herria

---

arroda *iz* gurpila.

Eta amets hura **arroda** bat zen jada, eta **arroda** jira-biraka hasi zen bidean aitzina, eta hura ez zen ametsa konplitu arte geldituko. Joan Mari Irigoien

Ipotx: josteta aritzen zarelarik zure eskuak baliatuz, pilota edo bola batzuekin, horiek konbinatzen ahal dituzu ere **arroda** bakarreko zikloaren gainean ibiliz. Herria

---

arrodamendu ik **errodamendu**.

---

arrogant *izond* handiustea, burgoia.

Baina zaldun harro eta **arrogant** hura, bere lagunak ere irri-karkaraka ikusi zituenean, are gehiago harrotu zen. Joan Mari Irigoien

---

arroila **1** *iz* haran edo pasagune sakon eta estua, bereziki haitz artekoa. ik **arro 1**.

Bardeako **arroilatik** Tutera parean Ebrora ailegatutako urak eragin zuen ibaiko ezker ertzean zeuden baratzeak eta etxolak hondatu zituen uholdea. Berria - Euskal Herria

Egun osoan, behean eta urrun, **arroila** garaitik ur-jauzietara saltoka zetorren erreka izan zuten bidelagun. Agustin Otsoa

Orduan, bospasei gizon armatu bakarraren kontrako borroka horretan, erasoak irauten zueno, artzainak bazekien hobe zuela **arroila** sakon baten gerizan geratzea. Itxaro Borda

Itsas hegi hori zerurantz jasoko duten harkaitzak ikusiko dira noizean behin, eta ura mendi garaietatik itsasora isurtzen duten errekek ebakiriko **arroilak**. Joseba Sarrionandia

Artiedakoak gara; hasieran Irunberriko **arroilan** bi urtegi egin nahi izan zituzten, bat txikia eta bestea handia. Edurne Elizondo

2 *iz* erretena.

Manexek kondatu dauku eremuaren markatzeko **arroila** aitzurtzen zutela, botaluzean artzeko egun guziz. Herria

Atzo, goizeko hamekak laurden gutitan, Uztaritzeko ondoan, Baionatik Kanbo alderat doan errepidean, patar baten zolako bihurgune batean, auto bat zerbait gisaz joan da arrunt zeiharka eta **arroilarat** uzkaili. Janbattitt Dirassar

Nafarroa osoan zehar pasatuko den **arroila** ez dute oraindik eraiki, baina lehenengo tartearen betetze lanak atzo bertan hasi ziren. Berria - Euskal Herria

Handik laster, Senpereko bidean jarri ziren guardek beren buruzagia zaldiz lauhazka zetorrela ikusi zuten eta, gutik egin zuen ez baitzituen lehertu, eta ur geldoz mukuru zen **arroilara** erorarazi. Elena Touyarou

Kuraiaz beterik ene soldadoek, sei, zazpi metra barna inguruan den **arroila** pasatzen dute eta azkartua zen sartzea beren arma giderraz bortxatzen dute, oihu batekin elgar sustatuz. Michel Oronoz

3 irud/hed

Bi bularren arteko **arroila** eskaini dio. Alberto Barandiaren

Lertxundik, Epaltzak, Saizarbitoriak, Atxagak... eta datozen zenbait gazte berrik orrialde ederrak eman dituzte argitara, eta denak **arroila** berrira begira jarri gaituzte! Pello Salaburu

Irriak, adinak mateletan urratu **arroilak** plegarazten zizkien. Itxaro Borda

4 ***arroila jaitsiera*** *(corpusean ez dago; ETCn **52** agerraldi)*

Arroila-jaitsiera (ingelesez "canyoning") espeleologia, xendazaletasuna, eskalada, rappel eta alpinismoa jardueren teknikez baliatuz arroila eta ur-jauzietan barna ibiltzean datza. ETC-entziklopedia

Bigarren eskuko Land-Rover bat erosi nuen, eta irteera bereziak antolatu nituen: Guarara **arroila jaitsierak** egitera -aitzindarietakoa izan nintzen horretan-, Pirinioetan eskaladak eta astebateko trekkingak.... ETC-prentsa

Eskalada, himalayismoa, base jauziak, **arroila jaitsierak**, muturreko eskia... denetariko gaiak jorratutako eta denetariko formatutan landutako filmak dira. ETC-prentsa

Mendizale nafar bat hil da Huescan **arroila jaitsieran**. ETC-prentsa

Eskaladaren aldaerak, mendiko eskia, **arroila jaitsiera**...: denetarik egin zale dira, eta Neskalatzaileak blogaren eta Pyrenaica-ren blogaren bidez ematen dute horien berri. ETC-prentsa

Sariak abentura jarduerekin dute zerikusia: Aramaioko Hontza Extrem abentura parkera bisita, **arroila-jaitsiera**, espeleologia saioa, eta kanoan, kayakean edota zaldian ibiltzeko aukera, besteak beste. ETC-prentsa

Uharteen bisitarientzat jarduera eskaintza askotarikoa da: **arroila jaitsierak**, zeharkaldiak zaldi gainean, bizikletan ibiltzeko bideak, kayaketan, eta abarretan. ETC-prentsa

Emakumeen bultzada areagotu nahi genuen, eta irteerak eta arlo ezberdinak jorratzen hasi ginen: **arroila jaitsierak**, via ferratak... ETC-prentsa

Hainbatek bidaiak egiten dituzte monumentuak ikusteko: nik bidaiak egiten ditut **arroila jaitsierak** egiteko. ETC-prentsa

5 ***itsaspeko arroila*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Zeroiak ere gerturatzen dira Capbretongo **itsaspeko arroila** handira, Landetara. ETC-prentsa

6 ***urpeko arroila*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ozeanoen azaleraren azpian, plataforma kontinental gehienak, mendiak, sumendiak, lubaki ozeanikoak, **urpeko arroilak**, goi-ordoki ozeanikoak, mundu osoa hartzen duten ozeano erdiko mendikateak daude. ETC-entziklopedia

---

arroitu *iz* hots ozena, zarata;

Lamiak, zubia bukatzeko, alde banatatik harri bat jartzea beste ezer behar ez zutela zeuden, sei arku ederrekoa oraingoan, baina jentilaren **arroitu** zakarra entzutean harriak bota eta ihes egin zuten. Pako Aristi

---

arroka 1 *iz* haitza, harkaitza.

Geroago mutikoa Berrako mugaraino eraman eta, hantxe biak **arroka** baten hegian jarririk, Piarresek: Pablo Sastre

Tontorrari so zegoen **arroka** lauaren gainean geunden biak, bizkarrez etzanik. Piarres Aintziart

Tunel ilun batean aurrera joan ziren, gazteluaren azpian, ziur asko, eta lurpeko portu moduko batera iritsi ziren: han **arroka** eta harri kozkorren gainera irten ziren. Iñaki Mendiguren

Hezurra **arroka** mota bat besterik ez balitz bezala hartuta, ezin dira esplikatu ezaugarri horiek, ahula baita harria tentsioetarako. Irene Aldasoro

Gorputz erdiko plano amerikanoa den argazkia sugarretan kixkali ahala, argazkiko gizasemeak aingira batek **arroka** artean geldirik dagoenean egiten duen dardara kurbatu bera egiten duela dirudi. Harkaitz Cano

Bazirudien hitzarmen bat-edo egina zela Satanekin, gizakiei amarruak egiten dizkien Gaizkilearekin, gizakien bidean **arrokak** eta tranpak jartzen dituen harekin. Koro Navarro

Fraidetxe aintzinean bada eskuarekin, batere indarrik egin gabe mugiarazten den gaitzeko **arroka** bat, hortarik izen hori. Xipri Arbelbide

Uztail hondarreko eguzkiaren ferekan, belar guriak lekua kendu dio han **arroka** gorriari. Aingeru Epaltza

Gerritik heldu zion, lepoa musukatu eta haren ipurdiari itsatsi zen, muskuilua **arrokari** bezala. Fernando Morillo

2 *arroka ama* *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Horiek hala, higadura hainbat eskualdetan **arroka amaraino** iritsi da, eta horrek ahalbide zezakeen ur gehiago lur azpira sartzea eta failetan eragin, eta lurrikarak abiarazi. ETC-prentsa

Jatorrizko **arroka ama** zein izan daiteken ondorioztatzea (protolitoa). ETC-zientzia, zuzenbidea

Horren ondorioz, **arroka amaren** jatorrizko konposizioa aldatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurzoruko sulfatoa **arroka amaren** meteorizaziotik iristen da nagusiki. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste oztopo batzuk dira, besteak beste, **arroka ama** magnetikoak sortutako hondoko interferentzia edo okupazio-aldi luze batek eremu zabal batean utzitako geruza magnetikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hauek, **arroka amatik** (jatorrizko arrokatik) migratu dezakete biltegi arroketara, eta hala gertatuz gero, ustiagarriak izango dira. ETC-entziklopedia

Oso ezaguna da **arroka ama** edo biltegia izateagatik, bere porositate eta iragazkortasun edo irazkortasun baldintzak direla eta. ETC-entziklopedia

3 *arroka azido* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Pikor fineko **arroka azidoek** (edo feltsikoek) kolore arrosa, zuria edo marroi argia izaten dute; bitartekoek, gris berdaxka; mafikoek eta ultramafikoek, gris iluna edo beltza. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mineral basikoak, olibinoa edo piroxenoak esaterako, ez dira agertuko, **arroka azidoak** baitira. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *arroka berdeen gerriko* *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Arroka berdeen gerrikoa edo greenstone belts, 6.000 eta 20.000 metroko lodiera duten arroka arroken pilaketa dira, sekuentzia horiek bi eremutan bana daitezke: ETC-entziklopedia

Arroka berdeen gerrikoak, batez ere, konposizio ezberdineko arroka bolkanikoekin, azaleko gorputz intrusiboekin eta sedimentu bulkanogenikoekin osatuta daude, olibinoan aberatsak diren magma-koladak eta azaleko sillak urriagoak direlarik. ETC-zientzia, zuzenbidea

12.9 irudia Deformazio-ereduak eta granitoaren eta arroka berdeen arteko erlazioak Zimbabweko Bindura-Shamva **arroka berdeen gerrikoan**. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *arroka bolkaniko*

Lehen bizidunen aztarnak aurkitu dituzte **arroka bolkanikoetan**. Berria - Gaiak

6 *arroka detritiko* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Arroka detritiko batzuek erabilera industriala badute. Lutitak esate baterako zeramikagintzan erabiltzen dira. ETC-entziklopedia

Ondoren, zehazten da ea badagoen osagai alokimikorik eta ortokimikorik, mineralik edo **arroka detritiko** zatirik, bai eta haien konposizioa eta tamaina ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *arroka filoniar* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Arroka filoniarrak edo Arroka hipoabisalak arroka igneo intrusiboak dira, magma sumendiko zainetatik gora igotzen hasi eta kanpora atera aurretik solidotzen denean sortzen direnak. ETC-entziklopedia

8 *arroka igneo* *(corpusean ez dago; ETCn **125** agerraldi)*

Arroka igneo (pegmatita) zein arroka metamorfikoetan topa genezake beste mineral hauekin batera, besteak beste: kuartzoa, feldespato potasikoak, anfibola, granatea, biotita... ETC-entziklopedia

Basaltoa eta gabroa bezalako **arroka igneo** primarioak, anfibol arrokekin lotuta egon daitezke. ETC-entziklopedia

Formazio horiek harreman estua dute **arroka igneo** ultramafikoek eratzen dituzten konplexu bandeatuekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Diaklasok, maiz, geruza sedimentarioen geruzapen-gainazalekiko paraleloak izaten dira, edo, **arroka igneo** masiboetan, aldi baterako higadura-gainazalarekiko paraleloak izan ohi dira; horrelakoetan, azaleko diaklasa deritze. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *arroka kristalino* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Horrenbestez, ikusten da **arroka kristalino** zaharrenak (arroka ama igneoa) gneisera metamorfizatu direla. ETC-zientzia, zuzenbidea

Karezko **arroka kristalinoa**, pikor ertain edo larrikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kanbriarraurreko zokalo bat da, aro devoniarretik permikora bitartean tolestuz joandako **arroka kristalino** eta metamorfiko paleozoikoz osatua, eta gerora izugarri higatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *arroka mafiko* *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

Arroka mafiko ugarienak basaltoa eta gabroa dira. Mineral ohikoenak olibinoa, piroxenoa, anfibola eta biotita dira. ETC-entziklopedia

6,5 eta 7,5 km/s-tik gorako abiadurak **arroka mafikoek** eta anortositek eta marmolek erakusten dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zeolitaren faziesan sortzen da, **arroka mafikoetan**, tenperatura baxuko mineral hidrotermal gisa. Prehnita, eskolezita eta mesolitarekin batera agertu ohi da. ETC-entziklopedia

Orokorrean, mineral hauek Si gutxi dute, eta beraz, **arroka mafikoetan** (basikoetan) topatzen ditugu. Bestalde, haien makla polisintetikoengatik dira bereizgarriak, bereziki mineralogia optikoan. ETC-entziklopedia

11 *arroka magmatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Arroka magmatiko bolkanikoak edo soilik arroka bolkanikoak, sumendietatik atera eta ur azpian edo lur gainazalean laba hozterakoan sortutako arroka igneoak dira. ETC-entziklopedia

Mapan, kolore gorriak eta marroiak tartekatuta agertzearen arrazoia da **arroka magmatikoak** igo zirela lurrazalaren hondotik, eta lehen metatutako sedimentuak zeharkatu

zituztela. ETC-prentsa

12 *arroka magmatiko-bolkaniko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Arroka magmatiko bolkanikoak edo soilik arroka bolkanikoak, sumendietatik atera eta ur azpian edo lur gainazalean laba hozterakoan sortutako arroka igneoak dira. ETC-entziklopedia

13 *arroka metamorfiko* *(corpusean ez dago; ETCn 151 agerraldi)*

Hortaz, **arroka metamorfikoak** edo harri metamorfikoak metamorfismo prozesuaren ondorioz sortutako arrokak direla esan dezakegu. ETC-entziklopedia

Pikor-tamaina aski larriko **arroka metamorfiko** batean agertzen diren mineral tabularren orientazio paraleloak ezaugarritutako foliazoari eskistositate deritzo. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arroka metamorfiko dentso eta ale xehekoa, mota askotako sedimentuak -esaterako, buztina edo eskistoa- konprimituta sortzen dena. ETC-zientzia, zuzenbidea

As-ri dagokionez, Pirinioetako **arroka metamorfiko** eta plutoniko asko arsenopiritan aberatsak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eskualde handi horretako penelautada zaharrak **arroka metamorfiko** zaharrez osatuta daude -granitoak, gneisa, kuartzitak eta abar-, eta zurrunak eta nahiko egonkorrak dira -orain dela 600 milioi urtetik hona-. ETC-zientzia, zuzenbidea

14 *arroka piroklastiko* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Arroka piroklastiko arruntena Toba da. Arroka honen osagai nagusiak errautsaren dimentsioa duten fragmentoak dira, fragmento hauek sumenditik atera bezain laister zementatu direnak. ETC-entziklopedia

15 *arroka plutoniko* *(corpusean ez dago; ETCn 29 agerraldi)*

Granitoa da han nagusi: "**Arroka plutonikoak** dira". ETC-prentsa

Material horiek gradu ezberdineko deformazioa eta metamorfismoa pairatzen dute, eta **arroka plutoniko** ugari barneratzen dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Goi-anfibolitatik granulitara bitarteko fazieko gneisez osatuta daude, eratorpen metasedimentario zein metaigneokoak dira eta, haiekin batera, **arroka plutoniko** batzuk ageri dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arroka plutoniko ere baderitze, eta bere meategiei, dike deritze. Mota hauetako arroka batzuk granitoa, gabroa eta sienita dira. ETC-entziklopedia

Diorita arroka igneo edo **arroka plutoniko** bat da. ETC-entziklopedia

Gabroa plagioklasa eta mea mineral mafiko ferromagnesikoz osatutako **arroka plutoniko** bat da. ETC-entziklopedia

Hori dela eta, seguruenik, Mg-serieen aktibitate plutonikoa denbora tarte zabal batean zehar jazo zen eta **arroka plutoniko** gazteenak oraindik ere lurpean, sakon, existitzen dira. ETC-entziklopedia

Geruza hau gabroz, **arroka plutoniko** basikoz, osatuta dago. ETC-entziklopedia

Arroka plutoniko eta metamorfiko oso deformatuak barneratzen dituen orogenoen erdiko eremua da. ETC-entziklopedia

16 *arroka sedimentario*

Tratatu bako hondakin-urak, atmosferaren kutsadura, industriek isuritako hondakinak eta txarto kudeatutako arro hidrologikoetatik iristen diren **arroka sedimentarioak** dira, hein handi batean, horren errudun. Berria - Gaiak

17 *arroka sedimentario detritiko* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Arkosa %60 baino gehiago kuartzoa eta %25 baino gehiago feldespatoa duen **arroka sedimentario detritiko** bat da. ETC-entziklopedia

18 *arroka sedimentario ez detritiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Dolomita **arroka sedimentario ez detritiko** baten izena da eta baita berau sortzen duen mea mineralarena. Batzuetan magnesio kareharri izena ematen zaio. ETC-entziklopedia

19 *arroka ultramafiko* *(corpusean ez dago; ETCn 25 agerraldi)*

Arroka ultramafiko edo ultrabasikoak silizio dioxido silize kopuru txikia (orokorrean %45etik behera) duten arroka igneo edo eurengandik eratorritako arroka metamorfikoak dira. ETC-entziklopedia

Lurraren mantua **arroka ultramafikoz** osatua dagolea kontsideratzen da. ETC-entziklopedia

Arroka ultramafikoak: Silikato ilunen kopurua %90etik gorakoa da. ETC-entziklopedia

Arroka ultramafiko askotan mineral berdeak egon ohi dira, baita eskisto-berdeak bezalako arroka metamorfikoetan. Azken honetan klorita, aktinolita edo epidota bezalako mineralak aurki daitezke. ETC-entziklopedia

Nukleo-mantu muga honetan 5,5 g/cm-ko dentsitatea duten **arroka ultramafiko** oso trinkotuen ondoren 10-13 g/cm-ko dentsitatea duen burdina eta nikelezko nahasketa urtua aurkitzen dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

20 *arrokatako lotxa* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Arrokatako lotxa ("Phycis phycis") ur gaziko arraina da, Phycidae familiakoa. ETC-entziklopedia

21 *arrokazko planeta* *(corpusean ez dago; ETCn 9 agerraldi)*

Urte berrirako nire asmoa Ilargiaren misterioak argitzea da, gure satelitea nolakoa den ulertzeko, eta Lurra zein beste **arrokazko planetak** hobeto ulertzeko. ETC-prentsa

Arrokazko planeten masa osatzen dute (Lurra, Merkurio, Artizarra, Marte...): planetak, euren akrezioan zehar osatuta dauden material silikatatuen fusioaren ondoren, haien hozte eta kristalizazioaren bidez eratutakoa. ETC-entziklopedia

Jules Verneren "Hector Servadac" eleberrian kometa baten gainean pasatzen dira Saturnotik gertu, eta **arrokazko planeta** mortu bat irudikatzen du. ETC-entziklopedia

22 *arroken ziklo* *(corpusean ez dago; ETCn 7 agerraldi)*

Arrokak agente geologikoen menpe daude, eta, horien eraginez, milioika urte dirauen etengabeko prozesu ziklikoa sortzen da: **arroken zikloa** edo ziklo petrogenetikoa. ETC-entziklopedia

Geologiaren ikuspuntutik, **arroken ziklo** ebolutiboa lurzoruak eratzean amaitzen da, eta hiru prozesu hauetan laburbiltzen da: ETC-zientzia, zuzenbidea

23 *arroketako barbarin* *(orobat **haitzetako barbarin**)* *(Mullus surmuletus)*

Baziren haitzetako **barbarinak** ere, haragi samur-samurrekoak, akuarioko arrainen kolore gorri bizikoak. Karlos Zabala

Arroketako **barbarinak**, papillote eran prestatuak. Jon Muñoz

24 *ilargi arroka* *(corpusean ez dago; ETCn 11 agerraldi)*

Ilargi arrokak Lur planetako Ilargian eratutako arrokak dira. **Ilargi arroka** gehienek Lurreko arroken antza handia dute, bereziki oxigenoaren isotopoen kopuruari dagokionez. Hala ere, **Ilargi arrokek** burdina gutxi izan ohi dute eta ez dute potasioa edo sodioa bezalako elementu hegazkorrik. Gainera, ez dute urik. ETC-entziklopedia

Oraindik ez dute jalkin horien iturria ezagutzen, baina **ilargi arroketan** oxigenoa egoteak ere erraztuko lituzke gizakiaren etorkizuneko misioak; arnasteko ezinbesteko izateaz gain, oxigenoa suzirientzako erregai aproposa baita. ETC-prentsa

25 *ilargiko arroka* *(corpusean ez dago; ETCn 12 agerraldi)*

Arestian aipatu bezala, Lurreko arrokek ez bezala, **ilargiko arrokek** ez dituzte osagai bolatilak ez mineral hidratatuak. Gainera, **ilargiko arroka** ugarik anortita mineralaren kontzentrazio altuak erakutsi dituzte, lurrean ez bezala. ETC-entziklopedia

Aurretik AEBen zein Sobietar Batasunaren misioek **Ilargiko arrokak** ekarri zituzten; Stardust ontziak (NASA) kometa hautsa ekarri zuen, eta Genesis ontziak (NASA), eguzki haize-partikulak. ETC-prentsa

Esate baterako, 16.19 irudian ageri diren datuek erakusten dutenez, **Ilargiko arroketako** sulfuro isotopikoaren osaera meteoroetako sulfuroaren antzekoa da, eta ez sulfuro biogenikoaren antzekoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi hilabete eskas lehenago, Apollo 11ko astronautak Lurrera itzuli ziren **Ilargiko arroka** batzuk hartuta. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

arroka artean (3); **arroka bat** (3); **arroka baten** (4); **arroka batera** (3)
arroken artean (5); **arroken artetik** (3); **arroken kontra** (9)

---

arrokape *iz* arroken azpiko alda.

Nik ezkutatu egin nuen lurpean, Ainhoa eta Sara arteko **arrokape** batean, inork ere sekula jakingo ez duen zoko batean. Txillardegi

Gure eskuara zurtz, jabe gabeko, eta hainbertze mendez mende **arrokapean**, itsaso eta uhuinpean galdu ordean bezala dabilan hunentzat, nahi nuke bilhatu aitzindari eta buruzagi on bat bakharra. Koldo Zuazo

---

arrokatsu *izond* arroka asko dagoena edo dituena.

Lurrean etzan zen horma **arrokatsuaren** oinaldean, eta burua sorbalden artean sartu zuen. Agustin Otsoa

Beraien aurrean, ibaiaren beste bazterrean eta haren gain-gainean zut, berrogei metro altuera izango zuen tontor **arrokatsu** bat altxatzen zen. Joanes Urkixo

Sekulako zaunka-saio zalapartatsuak antolatzen ditu, urtegiko bakea nik nahi baino areago urratuz eta Karrandiko mazela **arrokatsuetan** hamaika oihartzunetan biderkatuz. Txillardegi

---

arrolaka *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) adlag* zabuka, balantzaka.

[...] nola esaten den ez dudala jakin nahi, nik ere ez nioke-eta maite zaitut esango, gezur gehiago ez, ez da maitasuna, itsasoan galduaren etsia, nora eza, hain eder zorabioa, naufragook ere zoriontsu izateko eskubidea dugu itsasoa maitatu behar izan gabe, ekaitzak **arrolaka** darabilen baltsan eraiki hareazko gazteluetan behin-behinean ostatu hartuta. ETC-literatura, saiakera

---

arroltze *(orobat **arraultze** g.er.)* **1** *iz ipar* arrautza.

Arroltzea, biziaren hastapena, zinezko misterioa, ezin jakin nor den lehena: **arroltzea** ala oiloa? Herria

Arroltze, gasna, landare, orotarik bazuten saltzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ogitarteko bat, hoin handia, hoin lodia, nola izan daitekeen ere, hori ere zerbait da: sobera **arroltze** hautsi ote dituzte, ogi erdi baten hartzeko, ala azken hau ja hor zeno, araberako moleta metatu dute? Piarres Aintziart

Une hartan hurbildu zitzaien altzotara bat **arroltze** bildurik oilategitik atera zen emazte bat, adintsua hura ere. Elena Touyarou

Arroltzea da jakietan jaki goxoena. Herria

Goizeko 5etan jeiki, arraina eta **arroltzeak** bai, bainan haragirik eta arnorik sekulan ez. Xipri Arbelbide

Matiasen autobusean joaiten ziren neska batzuk Donibanera, gibeleratekoan zaretraka **arroltzeak** ekarriz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eskuak ahora eraman zituen, oihu bat estali nahian, eta **arroltzeak** erortzearekin, hautsi eta hustu zitzaizkion lurrean. Elena Touyarou

Emaztea kafearen zaintzen ari zen bitartean, Émile **arroltzeen** frijitzen hasi zen. Aurelia Arkotxa

Arroltze apainduen operazioan, bertzalde, kar handiz jokatu dira sei eskoletako haurrak. Herria

Haiek aldiz, bideari lotu ziren, hiru **arroltze** frijitu janik, xingarrarekin. Elena Touyarou

Eta nik, salda, eta gero bi **arroltze** freituak. Piarres Aintziart

2 (hitz elkartuetan)

Batzuk hixtukatu dute airoski, beste batzuk zernahi erran diote, eta norbaitek **arroltze** torta bat bota dio kasko gibelerat! Herria

Agian ez zen **arroltze** torta! Herria

Xingar eta **arroltze** jatea Bil-tokin. Herria

San Josep parkean 16etan elizako plazan, **arroltze** botatze txapelketa 21ak eta erdietan gauazko karro ibilaldia 23etan plazan. Herria

Janaria ospakizunari zoakion heinekoa izan zen: oilo salda **arroltze** gorringo eta ogi xigortuekin, amuarrainak artekiz troxaturik, kapoiak errerik, sagar erreximeta gasnarekin, hori guzia sagarnoz eta arnoz lagundurik. Elena Touyarou

3 ***arroltze moleta*** *(orobat **arroltzemoleta** g.er.) iz ipar* arrautzekin eginiko tortilla.

Bi ogi pusken artean **arroltze moleta** baratzeko biperrekin janik. Michel Oronoz

Arroltze moleta, beroa bezain ona. Piarres Aintziart

Arroltze-moleta, xingarra, gasna, bixkotxa, arno eta kafe: 10 eurotan. Herria

Hazparneko ezker paretean, bazkari on bat proposatua zaukula: **arroltze moleta** makallauarekin, idi kosta, entselada, ardi gasna, etxe bixkotxa, kafea eta patxarana.

Paxkal eta Marie Claire Mouxaut bikotea atera dira lehen **arroltzemoleta** egileen xapelketan. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arroltze botatze (3); **arroltze moleta handia** (3); **arroltze moleta lehiaketa** (4); **arroltze torta** (3); **pazkoko arroltze** (4); **xingar eta arroltze** (11)

---

arroltzemoleta ik **arroltze 3**.

---

arrondizamendu *iz* frantziar estatua administratiboki banatzen den zati bakoitza.

Parisen beraz, oro har eskuindarrek badute ezkerrekoek baino boz gehiago bainan boz horiek **"arrondizamendu"** askotan bi lixtetan partikatuak. Herria

Estatu frantseseko administrazio esparru jakin bati deitu ohi zaio **"arrondizamendua"**. Koldo Zuazo

Zuberoa eta Nafarroa Behereko lau kantonamendu (Donapaleu, Iholdi, Donibane-Garazi eta Baigorri) **arrondizamendu** berean ziren, eta Maule -Euskal Herrian bertan, beraz- zen hiriburua. Koldo Zuazo

Frantziako Gobernuak, 1926an hartutako erabakiaren bidez, **arrondizamendu** bitan banatu zuen Ipar Euskal Herria. Koldo Zuazo

Lapurdi eta Nafarroa Behere osoa Baionako **arrondizamenduan** batu zituen, eta Zuberoa, aldiz, euskalduna gabe, okzitaniarra den Oloroekoan sartu zuen. Koldo Zuazo

Arrondizamenduko komisarioa izan zen, pozik gainera, bat-batean lanaren abandonatzeko tirria susmatu zuen. Itxaro Borda

Pariseko hamahirugarren **arrondizamenduko** *Poterne Des Peupliers* aldeko komisaria baten buru izendatua izan zen. Itxaro Borda

---

arront *adlag* erabat.

Zorionez garaiz ohartu ginen, eta egilea ulerbera agertu zen, beste alde batetik iruditu zitzaidan **arront** estimatzen zaituela, duela egun batzuk izan zenuten elkarrizketa bat aipatu zidan. Jon Alonso

Wharton **arront** makurtu zen Smithers andrearen aurrean eta eskuan musu eman zion. Fernando Rey

Pertsonaiak deserrotuta agertu zaizkigu, giza harremanak **arront** urriak dira, sustrai ezak bakardadearen itsas zabalera bultzatzen du gizakia, eta, dagoeneko, nabigatzea ez da dibertigarria, portura (Kalaportura) heltzeko ez aukerarik ez itxaropenik ez dagoenean. Berria - Kultura

Aspaldi huntan hemen nabilazu, denboraren tiraniaz gogaitua, erabat laketu ezinik, **arront** alfertua. Jose Angel Irigaray

Orduan, gaijartzeileak - **arront** neska formala, moñoña eta txintxoa bera- gonbitea egin zion Iturriagari - **arront** mutiko korrekto, ortodoxo eta dekoratiboa-. Patziku Perurena

---

arronter *adlag* jatorra.

-Ba al dakizu zer gertatu zitzaion Demostenesi? -erran zenidan, fidantzia handiz jada, zeren baitzinen solasturi amoltsu eta **arronter** -. Joan Mari Irigoien

Bitarteko farfuil ez guti ahokarruka jaten eta mokoan zizarea, ahoxabalen azantzan, denak ahaidexkak badakizu, eta, nola ez!, **arronter** , eulikaka eta ardi ilupa ezin konta ahala. Jose Angel Irigaray

---

arropa *(ETCn **29.728** agerraldi)* **1** *iz* zernahi jantzi motari ematen zaion izena; jantzien, soinekoen multzoa. ik**jantzi**[2]; **janzki**.

Zuloz beterik nuen ama, gure etxea bezala, nire **arropak** , nire oinetakoak bezala. Eskarne Mujika

Beste alde batetik, beharginen **arropei** erreparatu eta euren janzkera oso arrunta iruditu zaik. Pedro Alberdi

Arropak patxadaz erantzi dizkiote elkarri. Alberto Barandiaren

Ordurako hura ere edaritan ito samarra zebilen, **arropak** gorputzean tokia bilatu ezinik, piura eskasean. Xabier Etxabe

-Arropa artean ipini eta armairu guztian zabaltzen da usain gozoa -dio Lainezek mantso, hitzak ongi ebakiz-. Pello Lizarralde

Ez, umeak ez zeukan **arropan** idatzita izena. Joxerra Garzia

Arantxaren **arropak** betetzen zuen armairuaren zatia Sombra kartoiz bete eta hara bideratzen nintzen, pakete berriaren bila, egunean bi aldiz gutxienez. Iban Zaldua

Horretarako **arropaz** aldatzen nintzen goizero, hipermerkatuan bertan aurkitzen nituen gauzekin. Iban Zaldua

Ez zenuen erantzun, **arropetan** bildua azaldu zintzaizkion ahalik eta mugimendu zabarrenak eginez. Koldo Izagirre

Zenbait egunen buruan Beloketik **arropak** ukan genituenean, trikota bat eman nion. Marzel Etxehandi

Gero Holly ohetik atera eta leihora joan da, barneko **arropaz** jantzia, leihotik behera joango dela mehatxu eginez. Koro Navarro

Aise antzematen zen ez zela aberatsa, baina alferrik bilatuko zenuen zabarkeri arrastorik haren **arropetan** . Karlos Zabala

Igandeko **arropaz** jantzita zegoen neska. Irene Aldasoro

Kanpotik baino gehiago biluzten ninduen barrutik; hain zuzen, hori izaten da zailena, **arropak** eta estalkiak erraietaraino itsatsirik egoten dira eta. Juan Kruz Igerabide

Etxe bateko altzariak bizitza guztirako ziren; ontziak, **arropak** eta dena, berriz, hondatu arteraino. Pako Aristi

Nire **arropak** seinalatu zituen; lokatzez beteta zeuden, eta odoleztatuta. Koro Navarro

Biak **arroparik** gabe gelditu zirenean, irakurritako liburu guztietako aholkuak gogoratzen ahalegindu zen. Fernando Morillo

Aparte xamar eseri ginen, jendearen solasik entzun beharrik ez izateko lain, isats lemaren gerizpean, **arropak** erantzita, oinetakoak (hondarra kiskalgarri baitzegoen) eta galtzontziloak izan ezik. Joxe Austin Arrieta

Alboan igarotzean norbaitek uki baleza, berehalaxe, kutsutik garbitzeko, bere **arropekin** sartu ohi da uretan. Patziku Perurena

Donapaleuko tenpluan bortzetan ikusiak nituen, beren **arroparik** dotoreenetan harro, Jainkoaren handitasunaren kan-tan. Aingeru Epaltza

Ama familiako zainartak heldu ziren beren semeei **arropaz** hanpatu zakuak ekartzera, noiz libratuko zituzten oihuz eskatzen. Itxaro Borda

Puritanoak agintean egon ziren urte horietan erabat debekatuak egon ziren herriko festak, edozein motatakoak izanik ere: antzerkia, tabernak, jolas eta kirol publikoak, jokoa, jantzi dotoreak, kolorezko **arropak** ... J.M. Olaizola "Txiliku"

Orain, nire mutil maitea, Willis's-en mahai on bat hartu nahi badugu, **arropaz** aldatzera joan beharko diagu. Antton Olano

Kafetegiren batetik edo dendaren batetik irten berriak, ibilgiro ona eta hurrengo tenporadako **arropak** ikustera joanak biak, auskalo, guti fida ezkontzarako soinekoa erostea. Koldo Izagirre

Haren ondo-ondotik igarotzean, Thatcher ohartu zen haren **arropei** petrolio-usaina zeriela. Lopez de Arana

Don Pedroren ama defuntak zuk beraren **arropak** janztea espero du. Juan Garzia

Eta, deus gabe gelditu zelarik, auzokoak, altzari merkatariak, bostehun libera eskaini zion amaren altzari eta **arropen** truke. Karlos Zabala

Soinekoaren aipamenak haurdun dauden emakumeentzako **arropak** ekarri dizkit gogora. Arantxa Iturbe

Damasko oihalez bildu zaldunak eta burutik oinetaraino burdinazko **arropaz** jantzi mairuak ageri ziren noiznahi, gero, prosa izugarri baten erdian, piztia eta otsoendako lakioz beteak ziren kartoizko puskailetan irentsiak izateko. Koldo Izagirre

-Egunon, andereñoa, zure anaia Clemente hor al dago? -kaleko **arroparekin** zetorren guardia zibilak, barrualdera beha. Jon Maia

Ez kezkatu; agindu neskameari nire **arropak** lehortzeko eta garbitzeko, besterik ez. Jose Morales

Arropak erantzarazi, multzotan sailkatu dituzte: galtzontziloak galtzontziloekin, alkandorak alkandorekin. Pablo Sastre

Gainera, itsaso gainetik, berezko legez, gorputz asko goratzen dela garbi azaltzen dute itsasertzean eskegitako **arropek** , halako hezetasuna itsasten baitzaie. Xabier Amuriza

Armairua **arropekin** zegoela ikusirik inork haren azpian **arroparik** bilatuko ez zuelakoan egin nuen horrela. Edorta Jimenez

Arropak pertxa batean bere sudurraren gainean dilindan ikusteak konpainia egiten zion, norbait zegoela berarekin irudikarazten zion komedianteari. Harkaitz Cano

Ez daramagu pijamarik ez bestelako **arroparik** , biluzik nago izaren azpian. Agurtzane Juanena

Sotoan zegoen kaxa bat eman zioten amari; osabaren **arropak** eta beste zeuden barruan, eta, tartean hormako margolana. Javi Cillero

2 (izenondoekin)

Azpiko **arropa** garbiak jantzita, txukun-txukun, telefonora abiatu eta Imanol lagun minari hots egin nion. Aitor Arana

Miraria iruditzen zait maletek nirekin batera jauzia egitea, Ariadnaren haririk gabe iristea aireportuetako terminal, **arropa** zaharren kanposantu eta uhal garraiatzaileetan zehar, heldu behar duten lekuraino. Harkaitz Cano

Halatan, **arropa** bustiek, ile beltz eta kixkurretan behera lerratzen zitzaizkion ur-ttorttolek, eskuan zeraman plastikozko poltsak, denek, euriak kearekin ezkonduz osaturiko usaina zeukaten. Itxaro Borda

Garai hartan baziren Luzaiden falangistak deitu armadako gizonak, **arropa** urdinez bezti zebiltzanak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Kendu **arropa** zikin horiek eta gosaldu ezazu zerbait... - esan zuen. Jon Maia

Gero, gugana hurbildu zen, bere **arropa** bustiekin. Juan Kruz Igerabide

Parisko gauetako batean oihal gardenean jositako **arropa** luzez jantzita agertu zen afarira. Edorta Jimenez

Baina zer **arropa** zatarrak dira horiek! Antton Olano

Dursley jaunak ezin zuen jasan **arropa** arraroz jantzitako jendea..., gazteen artean ikusten ziren janzkerak. Iñaki Mendiguren

Ez zuen ile mendera erraz horietakoa, betileak eta ezpainak zurbilegiak zituen, eta ez zen batere dotore ageri soin gainerako aukeratu ohi zituen **arropa** merke haiek jantzita. Mirentxu Larrañaga

Don Pedrok etxeko gelarik hoberena zeukan, barruko **arropa** fina erabiltzen zuen, ezin zuen kotoizko musuzapirik erabili, etxeko gainerako guztiek bezala, harizkoak eta zetazkoak baizik. Josu Zabaleta

Arropa izerdituak eranzten ari zen komunean, Dionisosek sukaldean entsalada bat prestatu bitartean. Unai Iturriaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emanaldi horretan, Goaz taldeko aktoreek omenaldia egingo diete antzinako **arropa** garbitzaileei, lan hori nola egiten zuten erakutsiz. Berria - Kultura

Nik bizitza eztiagorik ez diat ezagutu, Polixeneren **arropa** azpiak ireki eta haren soinekopeko pastel usainarekin zorabiatzen nintzen arte pasatzen nituen ordu haietakoa baino. Pako Aristi

Zubi gainetik **arropa** fardel bat baizik ez zirudien. Aingeru Epaltza

Zelan zaborretako kamioia Rhône aldera zihoala auzoko haur guztiak jostailuak, **arropa** puskak, kaier orriak atzematearren atzetik lasterka joaten ziren. Pablo Sastre

Sarritan esan izan zion Joek berekin bizitzera joateko; baina traba egingo zukeela iruditzen zitzaion (nahiz eta Joeren emazteak oso adeitsu hartu izan zuen beti), eta ohitu egin zen **arropa**-garbitegiko bizimodura. Irene Aldasoro

Ez dut ondo ikusten balkoiaren alde ilunean dagoelako, **arropa**-esekitokiaren eta fikusaren artean zehatzago esanda; baina postura egingo nuke bere titi pareak honantz apuntatzen duela, niganantz hain zuzen ere. Patxi Iturritegi

Karrozeria eta kristal puskak han-hemen, eta **arropa** zati odolduak nonahi. Jokin Muñoz

Arnasa hartzen ahaleginduz, **arropa**-eskuila handi bat atera zuen poltsatik eta aurrez Hagridek kendu ez zion kedarra garbitzen hasi zitzaion. Iñaki Mendiguren

Etxekoekin lotura estua izaten jarraitu zuen, eta amarekin bereziki: etxaldeko emaitzen poltsak aldian-aldian jasotzen zituen, eta **arropa**-poltsak joan-etorri ibiltzen ziren amarenetik. Xabier Olarra

Dena miatu diote soldaduen esku baldarrek, ez bakarrik zakutoa, baita arropak eta **arropa** azpiak eta gorputz-atal desiragarrienak ere. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina edozein txosna edo taberna alternatibotan katxiak 6-7 eurotan ordaintzen ditugunean, edota Iñurrategi itxura ematen digun markako mendi **arropan** gastatzen ditugunak gastatuta edo asteburuak eskiatzen edo futbol partiduetara joaten edo sagardotegietan edo drogan gastatzen duguna kontuan hartuta... Berria - Kultura

Geroztik, oihaleria han erosiz, eta hango josle edo dendarier jauntziak eginaraziz, hemen saltzen dituzte gizonki ala emazteki **arropak**. Herria

Hondarraren beraren gainean eraikia, eta bi kupula ekialdetarren arteko arku-ilara luzearen atzean, zintzilikatutako mainu **arropez** bestaldera, kabina mordo bat. Txillardegi

Hiru egunen buruan, Esterrek erregina-**arropak** jantzi, eta jauregi barneko patioan agertu zen, erregearen gela aurrean. Jose Antonio Mujika

Nahiz eta oraindik goizik den, gauak bere ikatz **arropaz** jadanik jantzi ditu hiriaren bazterrak. Ramuntxo Etxeberri

Zuri-zuriak zituen eskuak, aurpegia, bizarra eta ilea; giza **arropaz** jantzitako elurrezko estatua zirudien. Jose Morales

Bat gelditzen da, eta bere serora **arropak** utzirik, edozein emazte bezala beztiturik, bizi da, lehenik eliza dorrean gordea, gordeka jatera ekartzen diotela. Michel Oronoz

5 ***arropa denda*** *(orobat* ***arropadenda*** *g.er.)* arropak eta kidekoak saltzen diren denda.

-Ez, **arropa denda** batean lan egiten dut. Koro Navarro

Hartu duen lehendabiziko erabakia atari gaineko iragarkia aldatzea izan da:*jantzi-denda* kendu eta ***arropa*** - ***denda*** jarri du. Anjel Lertxundi

Argi-armiarmak sabaitik dilindan, nerabeendako **arropa-denda** batean baino ispilu gehiago bazterretan, Kristinak hainbertze gorrotatzen baininduen, ez genuen ataka gaindituko bi aste geroago **arropa-denda** handi batean hasi ez balitz. Aingeru Epaltza

Ahaztua izango du bere aitatxok Mary's Lane kalean bigarren eskuko **arropa-denda** zuen garaia. Irene Aldasoro

Arropa-denda handietatik ere sarri ateratzen genuen sal zitekeen zerbait, geure arropen azpian jantzita. Jon Arretxe

Dato kaleko **arropa denda** dotore -dotore eta esklusiboegi, nonbait- batera sartu ginen. disko-saltoki atseginak, marka onenetako **arropa-dendak**, beirate distiratsuko gozotegiak eta luxuzko jatetxe, pub nahiz kafetegiak ere. Patxi Zubizarreta

Teresarekin kasik egunero geratzen nintzen eta, bestela, nahiz eta ezeri erreparatzeko guztiz gogogabetua sentitu, **arropa dendetara** sartzen nintzen. Patxi Zubizarreta

Biolentoenek **arropa dendetako** erakusleihoak birrindu eta janzkiak ostu zituzten, manikiak puskatu eta haien zatiak (buruak, besoak, hankak, ileordekoak) han eta hemen barreiatu ondoren. Harkaitz Cano

Igogailuetan ibiltzeko ere arazoak edukitzen ditut nik, arnasa hasten baitzait halakoetan faltatzen eta, zer esanik ez, **arropa dendetako** aldagela txiki eta sargorietan sartu izan naizen guztietan. ezkontza bat zela eta, bera eta biok. Hasier Etxeberria

Hara non, soa norabide zehatzik gabe inguruan barreiatzen zitzaiola, Orbe-ko gizon-**arropa denda** batean Louise begimendu zuen, bi emazte eta gizon baten konpainian. Itxaro Borda

Leitzan bada **arropadenda** bat, ehun urtetik gora doana, eta "Paxegona" deitzen diote, nahiz etxearen izen zaharra Aurtxikine izan. Patziku Perurena

6 ***arropa etxean garbitu***

-**Etxean arropa garbitzea** esan duzu. Anton Garikano

7 ***arropa garbitu***

Arropa garbitzen ari da neska bat, beti bezala polita eta donarioz betea, hauxe da haren jantzia: gona gorria eta gerruntze urdina, "euskaldunen bi kolore kuttunak" dio Hugok. Koldo Izagirre

Eta gurera etortzeko esan genion, ohea, mantenua, **arropa garbitzeko** aukera, eta behar zuen guztia, denboraldirako errentan hartua genuen txalet txikian. Karlos Zabala

Nork aurpegi eman haren etorrera-egunari? Nork zutik iraun hura agertzean? Metala birfintzeko sua bezala, **arropa garbitzeko** lixiba bezala izango da. Elizen arteko biblia

Xaboi puska bakarra ematen digute-eta hilabete osorako, bai **arropa garbitzeko** eta bai norberaren garbitasunerako. Jon Muñoz

Andreak apailatzen zizkion otorduak, andreak **arropa garbitu** eta lisatzen. Joxerra Garzia

Giltzurrun artifiziala nahiko handia bada ere (**arropa garbitzeko** makina baten tamainakoa), ordu batzuk irauten duen dialisi bakar batek (dialisi-denboran lo egin dezake gaixoak) odolaren konposizio kimikoa egokitzen du, egun batzuetan bizimodu normala egin ahal izateko. Irene Aldasoro

Haiek nire **arropa garbitzen** eta ileko zorriak hiltzen. Aingeru Epaltza

Hirurehun frankoko gela bat, hamabost franko egunean mantenurako: laurehun eta berrogeita hamar franko geratuko dira **arropa garbitzeko**, gastu xeheetarako eta zinemarako. Monika Etxebarria

Eta emakumeak **arropa garbitzen** ikustea ere bai. Arantxa Iturbe

Eta hortik aurrera, eskobatzea, sukaldatzea, **arropa garbitzea** eta haurrak edoskitzea, horra bere bizitza zertara laburbilduko zen. Patxi Zubizarreta

Petrusen emaztea **arropa garbituak** eskegitzen ari da ukuilu zaharren ostean. Oskar Arana

Tximiniaren aurrean, Wendyk kordelak zabaltzen zituen, zuntzezko kordelak, eta horietan esekitzen zuen **arropa garbitu** berria. Julen Gabiria

8 ***arropa garbitze***

-Arropa garbitzea gero eta zailagoa da, eta zuek errauts gainean zuen buruak zikintzen -esaten zigun izebak. Juan Kruz Igerabide

Botikak bota eta **arropa garbitzera** eraman nuen. Joseba Urteaga

Eta hortik aurrera, eskobatzea, sukaldatzea, **arropa garbitzea** eta haurrak edoskitzea, horra bere bizitza zertara laburbilduko zen. Patxi Zubizarreta

Ulrich Kunsik etxe garbitzeak, **arropa garbitzeak**, eta garbiketa guztiak zituen bere ardurapean. Josu Zabaleta

9 ***arropa lehorgailu*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***11*** *agerraldi)*

arropa-lehorgailua, urarekin garbitutako arropa lehortzeko gailua. ETC-entziklopedia

Izan ere, merkatua baduten produktuen ordez, etorkizunean zer portaera izango duten ikusteko dagoen ontzi garbigailu berri bat eta **arropa lehorgailu** baterako motorrak egingo dira Lizarran. ETC-prentsa

Erakusketan aurki daitezkeen beste objektuen artean, Kongoko misiotik Voulgrek ekarri arma eta objektu txikiak aztertzeko aukera ematen dute, baita, besteak beste, Latinoamerikako" immigrante aktiboak" izan direnen potretak, xingar faltsuak, 1866ko bizikleta bat, **arropa lehorgailua**, erloju unibertsala ere. ETC-prentsa

Zergatik ahul daiteke Faraday-ren legearen eraginez etxe bateko argia, energia asko erabiltzen duen etxetresna elektrikoa (adibidez, **arropa-lehorgailua**) pizten denean? ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *arropa zuri*

Emaztea Elba zen, aurpegi gozoko emakumea, larrua kolore-zuri, beti **arropa zuri** artean bil-bil eginda bizi zena, jantzita bainoago, emakume handia baitzen, lodiaz gainera. Felipe Juaristi

Hobe da **arropa zuria** janztea, ilunak eta kolore bizikoak intsektuentzat erakargarri baitira, baita perfumeak ere. Berria - Harian

Hor daude lekuko kutxa batean sartu perlez josi sirena, edota ezteietako **arropa zuria**, arrosa koloreko bihotz bat itsatsia diola Valverdek. Berria - Kultura

Sei hilabete gabe esku artean zeukan ospitaleko **arropa zuri** guztia garbitzeko kontratua, lehiaketa publiko "guztiz gardenean" irabazia. Aingeru Epaltza

Arropa zuriaren pilara bota nuen elastikoa, eta gabardina eranzten lagundu nion. Anjel Lertxundi

Gizon indiar santu bizardun hura, **arropa zuriz** jantzia, zeinak kalean elkarren ondotik igarotzen garen bakoitzean burua makurtuz egiten baitit diosala. Oskar Arana

Arropa zuriak garbitu berritan izaten duen zurruntasuna dute, eta baita lixiba egiterakoan amak xaboiari eransten dion izpiliku-usaina ere. Anjel Lertxundi

Eta, nola fraideak baitzuen, bere eskolako guztiek bezala, akerraren usain gaixtoa, arropa kirastua gainetik kendu, eta **arropa zuria** eta fina jantzi zuen haren orde. Joan Mari Irigoien

Eta nire **arropa zuriarekin** nahasian aurkitu izan ditut bere musuzapi ñimiñoak edo kolore desberdinetako bragak. Joxean Agirre

Ohea **arropa zuriz** jantzirik zegoen, burusi gorri-beltz batek oinen aldea estaltzen ziola. Irene Aldasoro

Harekin adostu dut, dagoeneko, lihozko **arropa zuri** guztiak garbitu eta joste-lanak ere egingo dizkiodala. Mirentxu Larrañaga

11 *arropa zuritu*

Gero alderantzizko eragiketa egiten nuen, eta **arropa zuritu** ahala ura findu egiten zen berriro ere, ibaietako ur mehea izan arte. Lander Garro

12 *azpiko arropa* barruko arropa, ikusten diren jantzien azpian janzten dena.

Gure ama goizero joaten zen kartzelara **azpiko arropen** fardela eramatera, baita laranja zurituak eta intxaur kraskatuak ere janaria eramatea zegoen egunetan. Fernando Rey

Azpiko arropak zeuzkan jantzita eta nik, ipurdiko ttua lehortuko zitzaidan beldurrez, galtzontziloak erantzi nizkion kontu handiz. Aitor Arana

Hartu berriro, aldatu goitik behera (beno, **azpiko arropa** oraindik janzteko moduan dauka), eta etzan. Arantxa Iturbe

Une horixe hautatu nuen, **azpiko arroparen** mostradoreen gibeletik ateratzeko. Aingeru Epaltza

Atetik kanpora atereak zituen Honorék nire puska guztiak, edertasun-gaien laginak, **azpiko arropa**, mantal zuria eta galtza gris estuegiak. Joxan Elosegi

Luteziak berak ematen zidan beldurra eta bai Lutezia **azpiko arroparekin** ikusteko nuen gogoak ere. Matías Múgica

13 *barruko arropa*

Larruzko beroki bat jantzirik atera zen, **barruko arropa** xume batzuk erdi agerian zituela. Lopez de Arana

Gustatzen zitzaizun amiñaren **barruko arropa** txuria, han eserita, aulkian, ahizpak atzetik motoa egiten zion bitartean. Alberto Barandiaren

Neskak aldameneko **barruko arropa** -fabrikatik irteten zirenean, urtebetetzeak, ezkontzak, agurrak ospatzera etortzen ziren. Joseba Urteaga

"Ez dut geroko bizitzarik sinesten, baina badaezpada ere **barruko arropa** aldatu dut», dio Allenen ipuin bateko pertsonaiak. Berria - Kultura

Barruko arropa eransten saiatu zen, baina emakumeak aurre egin zion eta gizonak ihes egin zuen. Berria - Euskal Herria

Eta amaierarako uzten nuen **barruko arropa**: galtzontziloak, kuleroak eta bularretakoak. Jasone Osoro

Buzo urdin bat eta udako zapatilak eman zizkiguten, ez **barruko arroparik** ez galtzerdirik. Jokin Urain

Ireki eta hantxe azaltzen dira bideo pornografikoak, **barruko arropa** ... "Eta hau? Antton Olano

Automobil garbitua eta galduta dauden sakelako telefonoak eta **barruko arropak**. Iñigo Aranbarri

Ezetz egiten diot buruaz, ez dudala dutxatzeko gogorik, eta etxeko mantala janzten dut **barruko arropa** epelaren gainetik. Anjel Lertxundi

Bebarru batean bizi zen, atea sekulan itxi barik, beti hura zabalik, eta **barruko arropak** hantxe etxe ondoko iturrian ikuzten zituen. Edorta Jimenez

Babyk sarritan ukatu zion arren, Sethek bazekien 124ko nahigabea hasi zela bera gurdi hartatik jaistean, Bostonen bila zebilen neska zuri baten **barruko arropaz** lotuta zeramala jaioberria. Anton Garikano

Don Pedrok etxeko gelarik hoberena zeukan, **barruko arropa** fina erabiltzen zuen, ezin zuen kotoizko musuzapirik erabili, etxeko gainerako guztiek bezala, harizkoak eta zetazkoak baizik. Josu Zabaleta

14 *igandeko arropa* *(orobat* ***igandetako arropa*** *eta* ***igandeetako arropa****)*

Aitak **igandeko arropa** jantzi du, gaur goizeko manifestaziora joateko, ziurrenera. Jokin Muñoz

Gwilym ez zen jadanik nire lehengusua **igandeko arropaz** jantzia, gizon arrotz bat baizik, altua, kapa batean bildutako pala bat zirudiena; ahotsa gehiegi loditu zitzaion. Koro Navarro

Astelehenean, eskailerako mailak launaka jaitsi nituen eta, **igandeko arropekin**, tiragoma besapean irten nintzen kanpora. Joseba Sarrionandia

Gora joan zen **igandetako arropa** janztera. Koro Navarro

Petrusen festarako prestakizunak larunbatean eguerdi ondoan hasten dira, emakume talde bat iristen denean; dozena erdi dira, sendoak, eta, **igandeetako arroparik** dotoreenekin, elizara joateko bezala jantzita doazela iruditzen zaio berari. Oskar Arana

15 *kaleko arropa*

Azkenean, sartzeko agindua jaso duzue, eta **kaleko arroparekin** jantzitako gizon bat etorri da zure bila. Rafa Egiguren

Ordu bete baino gehixeago iraun zuen kirurgia-lanak, eta amaitutakoan, eskuak garbitu, **kaleko arropak** jantzi eta arinka atera zen aldagelatik, amarekiko elkartze atzeratua zela-eta etxera iristeko irrikatan. Oskar Arana

Arratsalde oso bat igaro genuen gure buruari galdetuz zer esan nahi izango zuen zuzendariak "Paper hori antzezteko, zuen alabak **kaleko arropa** jantziko du" esaterakoan. Joseba Urteaga

Ohean etzanda nago, **kaleko arropaz** jantzita; nire inguruan, aldizkari zaharrez eta TelePizzako kartoiez jositako moketa, zedenak jotako besaulkia, eta duela hilabete parea funtzionatzeari utzi zion telebista. Iban Zaldua

-Egunon, andereñoa, zure anaia Clemente hor al dago? - **kaleko arroparekin** zetorren guardia zibilak, barrualdera beha. Jon Maia

Walter **kaleko arropaz** hurbildu zitzaionean kasinotik irten eta aparkalekura sartu ziren. Iñaki Zabaleta

Eta Afifi anderea, bere ustetan neurriz gora, ordaintzen ari zen, izan Al-Azar-eko altzari dendetan izan Muski **kaleko arropa** saltokietan. Patxi Zubizarreta

Joan zenean, Adlerrek **kaleko arropak** jantzi zituen, eta biok atea itxi ondoren autora joan nintzen salto batean. Xabier Olarra

Soldadu joan zaion semearen **kaleko arropa** dauka etxean. Anton Garikano

Kaleko arropak kendu eta txandal galtzak eta puntuzko jertse zahar bat jantzi zituen. Unai Iturriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

arropa aldatu (12); **arropa artean** (9); **arropa azpian** (5); **arropa batzuk** (7); **arropa berria** (9); **arropa biltze** (5); **arropa bustia** (6); **arropa denda** (24); **arropa egokia** (5); **arropa erantzi** (12); **arropa eta guzti** (5); **arropa garbia** (10); **arropa garbitu** (6); **arropa garbitzen ari** (7); **arropa gehiago** (6); **arropa gutxi** (7); **arropa guztia** (20); **arropa haiek** (5); **arropa horiek** (11); **arropa jantzi** (10); **arropa jantzita** (8); **arropa kendu** (8); **arropa lisatzen** (7); **arropa saltzen** (6); **arropa zahar** (12); **arropa zaharra** (5); **arropa zaharrak** (10); **arropa zikin** (5); **arropa zikina** (7); **arropa zikinarekin** (7); **arropa zuri** (11); **arropa zuria** (12); **arropa zuriak** (5); **azpiko arropa** (12); **barneko arropa** (6); **barruko arropa** (30); **etxeko arropa** (9); **kaleko arropa** (7); **laneko arropa** (8); **nire arropa** (18)

arropak aldatu (11); **arropak erantzi** (27); **arropak eta gorputza** (13); **arropak garbitu** (13); **arropak jantzi** (20); **arropak janztea** (5); **arropak kendu** (6); **azpiko arropak** (5); **barruko arropak** (10); **bere arropak** (13); **haren arropak** (7); **nire arropak** (16); **oheko arropak** (5); **zituen arropak** (5)

arroparen azpian (5)

arroparik ez (11); **arroparik gabe** (12)

arropaz aldatu (10); **arropaz jantzia** (5); **arropaz jantzita** (8); **arropaz jantzitako** (5)

arropadenda ik **arropa 2**.

---

arropagabe *izond* arroparik ez duena.

Korridorearen erdian ugazabandrearekin gurutzatu zen: hark erratza pasatzeari utzi zion txabusina urdinaren azpiko mutilaren hanka **arropagabe** mehei begiratzeko. Lopez de Arana

---

arropagile *iz* arropak egiten dituen pertsona edo enpresa.

Ez horixe, zeren, ez dielarik opilgile, **arropagile**, jostun zein kapelagileen arimei muzin egiten, ez baitit noski niri egingo. Anjel Lertxundi

Baina aldaketa, egia esan, gutxi: %1na pasa irabazi zuten Inditex **arropagileak** eta Arcelor altzairugileak. Berria - Ekonomia

SCH eta Telefonicak %2na pasa irabazi zuten, %1,8 BBVAk eta, uste baino emaitza hobeak aurrikusi dituen Inditex **arropagileak**, %13,11. Berria - Ekonomia

---

arropagintza *iz* arropak egiteko jarduna.

Kultura berrikoak gara, gure identitateak gizarte globalizatuan sinboloen banalizazio batean hartu du oinarria, eta horren adibiderik biribilena euskal **arropagintzak** eman du, kamiseta eta alkandoretan egin ohi diren aldarri idatziak ergelkeria sasipoetiko bihurtuz, loreak mendian eta gisakoak alegia. Berria - Kultura

---

arropaño *iz adkor ipar* arropatxoa.

Behar da ikusi gito horiek zoin kartsuki eremaiten duten Sara sainduaren itxura, zeta finezko **arropaño** batez jauntzia, itsasoraino eta han urean sartzen apur bat. Herria

---

arropategi *iz* arropa gordetzeko tokia.

Guztiek luze-luzeak zituzten deiturak, kontsonantez beteak eta artizki zenbaitekikoak, guztiek zuten titulu eta lerruna, baina Akademian, nolabait esateko, **arropategian** utzi beharra zeukaten beren identitatea, Vienan edo Londresen josítako zibil-jantziekin batera, Holandan egindako barne-janzkiekin batera. Xabier Olarra

Eskola desagertu egin zen, **arropategi** eta sagu usaina zerion zulo sakon bat utzirik, Mount Pleasanteko tontorrean, eta "Warmley" hitzak distiratzen zuen hiri arrotz baten iluntasunean. Koro Navarro

---

arropatxo *iz adkor* arropa txikia.

-Izenik pentsatu al duzu? -galdetu zidan Aloñak goiz haietako batean, egiteko huraxe egokitu baitzidan, berak sehaskak, **arropatxoak** eta abarrekoak erosten zituen bitartean. Xabier Mendiguren Elizegi

Andreak ere badu bere **arropatxoa**. Fernando Rey

Beren **arropatxoa** prestatua izatea! Fernando Rey

Enbarazu egingo digu, hobe izango du etxean geratu, bere **arropatxo** zuria garbitzen. Joanes Urkixo

---

arropazain *iz* arropa zaintzen duen pertsona.

Negar kantaria, requiem konpositorea, hilobi apaintzailea, hileta **arropazaina**, hilotz banatzailea, fotomomifikatzailea eta letania trafikatzailea dira antzerki konpainia bilbotarraren obra berrian ageri diren pertsonaiak. Berria - Kultura

---

arropazaindegi *iz* arropa zaintzen den lekua.

Poltsa azaldu zeneko lekuari berari dagokionez, tren-geltoki bateko **arropazaindegia** oso leku egokia izan daiteke inoren irristada ezkutatzeko. Antton Olano

Arropazaindegiak oso leku haizetsuak dira. Antton Olano

Kanpoaldean, atariko **arropazaindegiaren** aurrean, nire zain zeunden. Eduardo Matauko

Jauntxoak uniformearekin, damen soinekoen dandarrari eusten; eta morroiak euren aurretik korrika, neguko gereziak eramanez, horiek baitira maitagarrien farolak; **arropazaindegiak**, bertan uzten baititutzte zilarrezko zapatilak, trukean arropentzako ticket bat jasoz. Julen Gabiria

Arropazaindegiko neska ilegorria berokiak biltzen ari zen. Lopez de Arana

Orduan konturatu nintzen **arropazaindegiko** txartela nire lagunak zeukala, gure berokiak biok batera erantzi genituen eta. Eduardo Matauko

Arropazaindegitik berokia hartu nahi izan nuen. Eduardo Matauko

Victoria Station-eko **arropazaindegian**. Ramon Saizarbitoria

---

arropazaintza *iz* arropazaindegia.

Gordeko dizut **arropazaintzan** zure... zure... Xabier Mendiguren Elizegi

---

arroperia *iz* arropa multzoa.

Saltegiak idekiak izaiten ahalko dira helduden igandean, urtarrilak 11, bereziki **arroperia** eta oinetakoak saltzen dituztenak. Herria

Bildua zeunden **arroperiak** zorura egin zuen musu horretan. Koldo Izagirre

Miarritzen,Herriko Etxearen baimen berezi bat berme, saltegiak idekiak izaiten ahalko dira helduden igandean, urtarrilak 11, bereziki **arroperia** eta oinetakoak saltzen dituztenak. Herria

Doi bat oihaleria eta **arroperia**. Herria

---

arroputz ik **harroputz**.

---

arropuzkeria ik **harropuzkeria**.

arrosa *(ETCn **10.855** agerraldi)* **1** *iz/izond* arrosa landarearen lorea, usain onekoa, jatorriz kolore gorri txit ahula duena.

Sudurra ttipia eta ahoa **arrosaren** idurikoa. Aurelia Arkotxa

Makina batekin belarra mozten zuen, eta **arrosak**, kalak eta liliak zaintzen zituen. Joan Mari Irigoien

Agian gogorarazi al dizute zuk egun batean horrelako **arrosak** opari eskaini zenizkion neska? Eduardo Matauko

Zoru gainean, ezker eta eskuin, emakume batzuk eserita zeuden lorez betetako saski karratu batzuen atzean; **arrosak**, bioletak, daliak eta bitxiloreak zituzten salgai, sortaka bildurik. Karlos Zabala

Zeren, nola erran, **arrosak** beste edozein loreek baino hobeki bizia itxuratzen du. Menane Oxandabaratz

Ez zaizkit sekula gustatu **arrosak** eta pastelak, sasi-kolorezko pertsonak. Xabier Paya

Harrigarria dirudi **arrosaren** usainak kiratsetik ere parte bat izatea, baina forma kontzentratuan usain nazkagarria duten substantzia asko ez dira desatseginak oso diluiturik daudenean. Irene Aldasoro

-Eta kaktus **arrosak** ere bai. Unai Elorriaga

Dudley hanka-zabalik begira eta izozkia jaten ari zen bitartean, Harryk leihoak garbitu zituen, belarra ebaki, automobila garbitu, lorategia txukundu, **arrosak** kimatu eta ureztatu, eta pintura-eskualdi bat eman zion lorategiko aulkiari. Iñaki Mendiguren

Printzesak atorra luze holandarra dauka jantzita, gorri-kolorea, eskumuturretan lore batzuk -**arrosak** iruditu Joanesi-, urre hariz brodatuak dituela. Felipe Juaristi

Hasierako hatsa, denbora gutxira **arrosen** usaina bailitzan arnasten nuela konturatu nintzen. Jasone Osoro

Lili sortak dakartzate eskuetan: kalak, **arrosak**, krabelinak... zilarrezko paperean bildu eta koloreetako zintekin txukun apainduak. Patxi Iturritegi

Barruko loreak iharturiko **arrosak** zirela ohartu bezain laster, ate hotsa sentitu zuen tabernaren beste muturrean, eta burua jiratu zuen. Aritz Gorrotxategi

Heriotzaren etorbideetako **arrosak** lapurtzeko jaio nintzen. Sonia Gonzalez

Mundu guztiak egiten zian txalo, mundu guztiak egiten zian biba, mundu guztiak jaurtitzen zizkiean **arrosak** prozesioan zihoazen militarrei eta abadeei eta mariaren alabei eta guraso zintzoei eta komunioa egin barriei eta... Koldo Izagirre

Groenlandian gauza asko falta zaizkigu, laranjak esate baterako, eta **arrosak**, eta palmondoak, baina denboraz ez gabiltza hain gaizki. Bernardo Atxaga

Nire **arrosek** oso urrin gozoa botatzen dute, Miepen eta Bepen krabelin gorriek ez bezala. Josu Zabaleta

Hire aiton-amonen lorategiko **arrosak**. Josu Zabaleta

Mentxuren gelako **arrosek** barreiatutako usain goxoaren kontrastean, gela hartan kirats itzela zegoen, hanka-usaina, izerdia eta botika-giroa. Josu Landa

2 *izond* kolore gorri txit ahula.

Halakoetan, gogoa ematen zidan "nire umetxoa" deitzeko, emakumeak aitari lehen esaten zion bezala, ileak laztantzen zizkiolarik estalki **arrosaren** azpian. Juan Kruz Igerabide

Hortaz, etxera joan nintzen; emandako botika guztiak komun-zulotik behera bota nituen: pilula **arrosak**, zuriak, urdinak. Eskarne Mujika

Nire aurpegiaren erdia badoa, osorik, ahoaren ezkerraldea bihurritu eta puztu egiten da, hortz bat agerian utziz, orbita globo zuri batera irekitzen da, odola darion haragi **arrosaren** gainean. Monika Etxebarria

Aurpegiak, euri-tantaz diz-diz, gazta hori izerditu baten itxura zeukan, masailezurrak seinalatzen zizkioten bi une **arrosetan** izan ezik. Irene Aldasoro

Bertze isilune baten nekeari buru emateko prest, Anak egun horretan zeraman kamiseta tirantedun **arrosaz** oroitu nintzen. Aingeru Epaltza

Berrikuntza zen ez zituela ligako beltzak, **arrosak** baizik. Pello Lizarralde

Belus **arrosazko** mitxoletak kiribildurik zeramatzan emakume ile-urrekarak ibilera jauzkari bezain isil-misilean zeharkatu zuen jendez mukuru zegoen gela, eta tinko heldu zion anfitrioiari beso meharretik. Mirentxu Larrañaga

Lehenik kaskarinak -zuriz, **arrosaz** edo urdinez jantzitako "andereño xarmagarri hura" liluratu nahi zutenak amodio-dei totelekin-, eta hurrena eskaintza ohoragarriak egiten zituzten jaun zuhurragoek -ondasun gutxi, dezente edo franko zeukatenek-. Anton Garikano

-Deklarazio bat, lau zuloko blok frantseseko paper horian idatzia, edo berdean, izan liteke **arrosan** ere. Koldo Izagirre

Nazka emango zioten agian nire zitziek eta izpi grisez pintarraturik ageri nuen larruazal gero eta **arrosagoak**. Joxan Elosegi

Amak eta bi inudek bularra eman zioten, eta lehoikume bat bezain indartsu hazi zen, jazmina bezain zuri eta **arrosak** bezain musugorri. Patxi Zubizarreta

Zerura begiratzeko leihatila edo begi-luzagarri magiko hori kristal **arrosazko** bola bat zen, laranja koxkor baten tamainakoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aldea, zure ikastetxeko kaperako irudian ikusi haurra bilo-horia eta larruazal **arrosakoa** zela, ez larru eta begi ilunekoa. Xabier Montoia

Lanean ihardun zuen artean, zeruaren kolorea, **arrosara** aurrena eta urdin ilunera hurrena, aldatu eta izarrez bete zen. Xabier Montoia

Bizkitartean, mediterraneo eskualde jantziz apaindu emazte konkortuek, Tati dendako zaku erosketaz hanpatuak tinkatzen zituzten esku ahurretan, zuriak marra **arrosekin**. Itxaro Borda

Bazirudien egun batean haurraren odol gorria ikusi zuela, beste egun batean hilarriaren arrasto **arrosak**, eta hartan amaitu zela guztia. Anton Garikano

- Deklarazio bat, lau zuloko blok frantseseko paper horian idatzia, edo berdean, izan liteke **arrosan** ere. Koldo Izagirre

Eta gorriak eta **arrosak**, hango eta hemengo. Urtzi Urrutikoetxea

Barruan, iturri bat zegoen, hotza eta garbia, egurrezko makila batzuk inguruan zituela; haietan sarturik, oihal zati berde eta **arrosak** zeuden. Juan Kruz Igerabide

Hegazkinak goia hartu zuenean Stoneham gaineko laino **arrosak** ikusi nituen; handiagoak ematen zuten handik, eta zapalak. Bernardo Atxaga

Eta berak zer egiten duen hor, bakarrik bere soineko **arrosarekin**, kanpoan haurrak elkarrekin haserretzen diren bitartean. Alberto Barandiaren

3 (izenondoekin)

Zeruan bospasei laino txiki ageri ziren artean ilundu gabeko ertzean, kolore **arrosa** ahulekoak; belarrietan jarri ohi diren kotoizko bolatxoak ematen zuten, ez hain borobilak. Bernardo Atxaga

Otegik Gorostidiren errautsak zituen bere atzean, mahai gainean zegoen kutxan, **arrosa** gorriz estalian. Joseba Zulaika

Tirakada batez ohe-estalki **arrosa** itsusia kendu zuen, eta ohe gainean erori ginen, elkarren hankak kiribilduta. Juan Martin Elexpuru

Idazmahai gaineko kristalezko loreontzi urdinetik -ai, ezaguna zitzaidan haur-denborako begirada ikuskatzaile hartatik bertatik- lau **arrosa** zuri hartu eta eman zenizkidan. Eduardo Matauko

Londresen hilotza makilatu zutenek lady ingeles mizkin bat bailitzan makilatu zuten, begietan itzalik gabe, ezpainak **arrosa** hortera batez... Harkaitz Cano

Nik jeansak neramatzan, bai galtzak, bai alkandora, bularrean **arrosa** brodatu batekin. Juan Kruz Igerabide

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etorri eta laztan egin zidan; eta Florentziako sonbreiru eder handi bat atera zuen handik, maiatzeko **arrosa** sortatxo bat zuena, niretzat! Josu Zabaleta

Arrosa -xurgatzaileak zebiltzan. Juan Garzia

Eta **arrosa** sorta bat, bi peonia sorta eta landaretxo bat. Josu Zabaleta

Galtzak laxatzeko toki bat, zerbitzu guztiak dituena, zeren, batetik, hosto freskoak eta oihal-pedazuak hautan baitaude, baita ontzi bat **arrosa**-ur ere, eta zeren, bertzetik, ez baitago zerbitzarien beharrik, eskrementuen honat edo harat eramaiteko. Joan Mari Irigoien

Eta, hori gutxi ez eta, bazen beste sibasritar bat, goiz batean jaiki, eta kexuka hasi zena gauean lo egin ez zuelako, zeren eta, **arrosa**-hostoz betea izanik ohea, hostoetariko batek enbarazu egin baitzion, bitan tolestu zelako. Jon Muñoz

Bertze nornahirentzat gurutze-bide dorpea litzatekeena, **arrosa**-bide zaio ustezko eroari. Xabier Montoia

Mikelek ere ezagutu zuen bere 'rosebud', bere **arrosa** ernamina. Ramuntxo Etxeberri

4 ***antxeta arrosa*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Antxeta arrosa, Rhodostethia rosea. ETC-entziklopedia

5 ***arrosa kolore***

Eta **arrosa kolorea** zeukan pottolo hari bihotza ttanka-ttanka ari zitzaiola! Daniel Landart

- asetasuna, "soiltasuna", alegia (**arrosa kolorea** gorri "ase gabea" da, gorriari zuria gehituta lortua); eguzkiaren espektroko koloreek gehieneko asetasuna dute;. Josu Zabaleta

Nahi nuen ziur izan nafar dotorearen mateletan ikusi nuen **arrosa kolorea** bidean bildu zuten beroak baino gehiago ene soak eta behar bada niri buruzko desinteres eskasak eragina zutela. Piarres Aintziart

Jakin ez bazuten ere, Françoisen hilketa senar jeloskor bati leporatu zioten, botikari bati hain zuzen, pintatzailearen estudioan aurkitutako koadroko emakume **arrosa-kolorea**, emazte baitzuen hark. Felipe Juaristi

6 *arrosa koloreko*

Rossetti-ren poema liburuari eusten zion, erdi ustelduta, sabelaren kontra, eta **arrosa koloreko** txori higuingarria mokoka ari zitzaion eskuetan, eta odolak zipriztindu egiten ninduen. Ramon Saizarbitoria

Halako batean **arrosa-koloreko** odol isurketa labur eta urria izan nuen. Joseba Urteaga

Marseauren masailak **arrosa kolorekoak** ageri dira, pintatu balituzte bezala. Itziar Otegi

Haren ordez, puzgarri erraldoi bat: **arrosa koloreko** herensuge bat, aho zabala letagin koniko-bigunez gainezka. Iban Zaldua

Madagaskarko 50 zentimetroko zigilu **arrosa kolorekoa** falta zaio tamalez oraindik, eta etengabe kexatzen zait gure arteko elkarbizitza zailago jarriz. Joxean Agirre

Arrosa koloreko argien azpian dantza egiten dute. Berria - Kultura

7 *arrosa kolorez*

Haren ile gorria - tindatutakoa -, buru kaskoan bildurik; haren azazkalak - **arrosa-kolorez** beti -, atzaparrak bezain luzeak; haren takoi zorrotzak, hamar zentimetrokoak. Eskarne Mujika

Abantxu grand chelem: Nork pentsatuko zuen holakorik: 22 eskualdetarik 21 ezkerraren menpe izanen dira, Frantziako mapa **arrosa kolorez** tindatua da salbu, han, ekialdean Altsazia urdinez egon dela. Herria

Gela bat **arrosa kolorez** margotua zen. Koldo Izagirre

3 *arrosa landare* *(orobat **arrosa-landare**)* zuhaixka arantzatsua, izen bereko loreak ematen dituena *(Rosa).*

Neska hura **arrosa-landare** bihurtu zen, eta Eguzkiak, printzesa ederrak eragiten zion lilura gainditua, eguneroko bideari jarraitu zion. J.M. Olaizola "Txiliku"

Joxe, Abel beti alboan, pixka bat gehiago baztertu da, **arrosa landare** baten babesa bilatu arte. Pello Lizarralde

Aitzinean hiru zutoin, hirurak ere **arrosa-landare** batzuek izurtuak eta kiribilduak. Joan Mari Irigoien

Hilerrian, elizaren inguruan, harrizko gurutzeen artean, hainbat koloretako **arrosa-landareek**, gorriak, horiak, eta itxura tristeko zitori zuriek distiratzen dute udaberrian. Zuhaixka zerrendak ibilaldi bat egiten ari diren eskolaumeak bezala zerrendan jarriak, **arrosa landare** bikainak edo fruitu arbolazko erregimentuak. Koro Navarro

Beste **arrosa-landare** igokari bat, adar bihurrikoa eta lore te-koloreak ematen zituena, fatxadan gora igotzen zen mahatsondo baten moduan. Koro Navarro

Zimelduak ageri ziren **arrosa-landare** igokariak, lehen hain mardulak. Koro Navarro

Antzekoa gertatzen duk mahastietan ere: gaitzak **arrosa-landareak** jotzen ditik lehendabizi. Anjel Lertxundi

8 *arrosa-leiho*

Artaxonako goiko elizari so nengoela, aitzinaldeko geometria miresgarriari so, errauta baten goialdea **arrosa-leihoak** xilatzen duela, Ximunek erakutsi zidan herriaren mugako dorren zerrenda pollita. Piarres Aintziart

9 *arrosa lili* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

De Lancre inkisidorea Lapurdin barrena ageri da, eta pertsiar lorezainak **arrosa-lilia** sortzeko ahaleginetan, eta heladear zaharrak Egiptoko desertuetan gaindi, eta Alexandre Handiaren etsai eta gero lagun izan zen Punjabeko errege Pororen berri, eta Kubako beltz esklabo iheslariak... ETC-prentsa

Usaian bezala, 2 herrietako haurrak gomitatuak dira etortzera **arrosa lilien** botatzeko. ETC-prentsa

Atentatua gertatu gune berean egin dute omenaldia, Azpeitiako Loiola auzoan, xirio eta **arrosa lilien** artean. ETC-prentsa

"Amodioa"-ko beste pertsonaia batek, antzinako garaien istorioa entzun ostean adarra jotzen dio potikarioari, arbasoek maitasun jokoetan aritu ahal izateko musika eta **arrosa liliak** behar izatea dela eta. ETC-literatura, saiakera

-Berri bat ekarri didazue... **arrosa-lili** hutsa, mutila! ETC-literatura, saiakera

10 *arrosa lore*

Eta apur bat itxoin zuen, galtzeta eginez, zalantzati, eta afalorduan esan zituzten hitz haiek, "Txinako **arrosa loretan** eta erle horiak inguruan txistuka", pixkana hasi ziren bere gogoan alderik-alde errimoz jarioan. Anton Garikano

Hiru lore bikain zituen géant des batailles **arrosa lore** bati begira nengoela, non ikusten dudan, argi eta garbi ikusi ere, nire ondo-ondoan, lore horietako baten txortena bihurritzen, esku ikusezin batek bihurrituko balu bezala, eta gero eteten, esku ikusezin horrek bildu izan balu bezala. Josu Zabaleta

Sozialixtek arras berea dute **arrosa lorea** eta beraz lore horren kolorea. Herria

Haragi zuri-zurian iltzeen beltza nabarmentzen zen; saihetseko zauria, ostera, gorri ageri zen, udaberriko **arrosa-lorea** bezala; ez da beraz, harritzekoa, honelako edertasun anitz eta miragarriak poza eta harridura sortzea ikusten zutenengan. Askoren artean

Arrosa loreak begietako gaitzen sendatzeko balio duen gisara, bihi gorrixkekiko patxaranak auskalo zenbat tripako-min sendatu dituen gure etxean...! Pello Zabala

11 *arrosa loredun*

Harry konturatu zen Hagriden euritako **arrosa loreduna** etxolaren atzeko hormaren kontra zegoela. Iñaki Mendiguren

12 *basa-arrosa* *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **basarrosa** agertzen den)* ik **basarrosa**

Horregatik, Akerbeltz jenio azienda-zaintzaileari buruz nekizkientxoak eta Apuleiok Urrezko astoan **basa-arrosei** buruz esaten dituenak neuretzat gorde, eta bi gizonen jardunean lotuta segitu du nire arreta osoak. Anjel Lertxundi

13 *flamenko arrosa* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Flamenko arrosa ("Phoenicopterus roseus"). ETC-entziklopedia

Hegazti kopuru nahiko handia dago, kostaldeko eremuetan aurkitu ahal den Humboldt pinguinoa, Andeetako **flamenko arrosak** eta txolarreak izan daitezke batzuk. ETC-entziklopedia

58 hegazti espezie migratzailek hartzen dute bertan atseden, aipagarrienak zankaluzea, hegabera ezproiduna eta **flamenko arrosa** dira. ETC-entziklopedia

Zango bakar baten gainean igota nago, **flamenko arrosa** bainintzen, eta eskuak aidean mugitzen ditut trapuzko pampin batek bezala. ETC-prentsa

Tsimanampetsotsan dagoen laku gazia: **flamenko arrosaz** beteta dago. ETC-prentsa

Nakuru lakuan **flamenko arrosak** ikusi genituen. ETC-literatura, saiakera

Itsasaldiaren araura, urak mangledi-sustraiak estaltzen ditu, beraien artean kanal gisako ubideak sortuz, han-hemenka padura bilakatzen direnak, edo aintzira, **flamenko arrosa**-koloreen bazkategi. ETC-literatura, saiakera

14 *haize-arrosa*

XVII. mendearen erdi-erdian hantxe jarrita, erabateko **haize-arrosa** matematikotzat ageri zen Fermat. Jon Muñoz

Kalkuluen paperak jakako sakelan sartu, eta azken aldiz eman zion begiratu bat **haize-arrosari**, hari esker orientatu ahal izan baitzen mundu matematiko berri haietan barrena. Jon Muñoz

15 *haizeen arrosa*

Haizeen arrosaren bidegurutzean. Joxan Elosegi

16 *hiruki arrosa*

Baziren **hiruki arrosak**, homosexualentzat. Eneko Bidegain

17 *japoniar arrosa* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Japoniar arrosa (Rosa rugosa). ETC-entziklopedia

18 *maglia arrosa* Italiako itzulian, sailkapen nagusian lehen doanak jantzita eramaten duen elastiko arrosa.

Maglia arrosa (liderraren maillota) lortu zuenean ere, trebea izan zen kazetariek egin zizkioten galdera gaiztoei erantzuten Bigarren etapa garaipena lortu zuen, eta gainsariei esker **maglia** arrosa jantzi berriro. Berria - Kirola

Maglia arrosa soinean darama dagoeneko. Berria - Kirola

Maglia arrosa berreskuratu zuen. Berria - Kirola

19 *mokozabal arrosa* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Mokozabal arrosa "Platalea ajaja" (lehen "Ajaia ajaja"). ETC-entziklopedia

20 *nobela arrosa*

Adoleszentziaren hastapenean, "abuela Eusebia"k, Corin Tellado sinaduraz agertzen ziren **nobela arrosak** eta vaquero nobelak pilaka prestatzen zizkidan, komikietarik ezberdinak ziren irudi gutiko gaztelerazko testuak ikasi nituen irakurtzen. Ana Urkiza

21 *prentsa arrosa*

Talk-show-ak, **prentsa arrosako** saioak, zapping saioak, kirolak, lehiaketak, reality-ak eta bideoklipak aztertzen dira. Berria - Harian

Urtzik, gainbehera datorren aktore ospetsuaren paperean, Garikoitz **prentsa arrosako** kazetariak egindako eskaintza onartu ala ez erabaki behar zuen. Berria - Kultura

-Nahi izanez gero, berandu gabe sal diezaiokegu **prentsa arrosari** titularra. Joan Mari Irigoien

22 *saltsa arrosa*

Gustatzen al zaizkizu sandwich bejetalak? **Saltsa arrosarekin** prestatzen dituzte sukaldean, oso goxoak dira". Bernardo Atxaga

23 *Siriako arrosa* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Siriako arrosa edo Siriako hibiskoa ("Hibiscus syriacus") hibisko mota bat da, ezaguna bere lore ederrarengatik. Munduko parte askotan lantzen da landare apaingarri moduan. ETC-entziklopedia

Biblian aipatzen den **Siriako arrosa** azuzena hauxe ez ote den ere esaten da. ETC-prentsa

Lehenbiziko zuhaixka **Siriako arrosa** izan zen, Jauregik azaldu duenez, Siriako gerraren biktimak gogoan. ETC-prentsa

25 *zerga arrosa* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Zerga arrosa deitua du gehiegikeria, garestiago diren ekoizpen horiek arrosak baitira gehienetan. ETC-prentsa

Askorentzat, merkatuaren jokoa da askorentzat **zerga arrosa**, eskaintzaren eta eskariaren arteko hartu-emana: emakumeak gehiago ordaintzeko prest badaude, markek hori baliatuko dute; baina sustraietan genero bereizketa bat ere badagoela salatzen dute hainbat elkartek nazioartean. ETC-prentsa

Zerga arrosaz ere hitz egin da aspaldion, baita ama bezain polita, aita bezain azkarra leloak zeuzkaten kamisetez ere. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alkandora arrosa (6); **argi arrosa** (3); **arrasto arrosa** (3); **arrosa arrosa** (3); **arrosa bat** (49); **arrosa baten** (9); **arrosa batez** (4); **arrosa batzuk** (3); **arrosa bezain** (3); **arrosa bizi** (3); **arrosa da** (4); **arrosa eta krabelin** (3); **arrosa gorri** (13); **arrosa gorria** (4); **arrosa handi** (6); **arrosa hori** (5); **arrosa hostoz** (3); **arrosa jantzi** (3); **arrosa kolore** (19); **arrosa kolorea** (15); **arrosa koloreko** (44); **arrosa kolorekoa** (12); **arrosa kolorekoak** (11); **arrosa kolorez** (5); **arrosa landare** (9); **arrosa mota** (3); **arrosa sorta** (12); **arrosa usaina** (3); **arrosa zeraman** (3); **arrosa zuri** (8); **arrosa zuria** (4); **arrosa zuriak** (4); **atorra arrosa** (4); **aurpegi arrosa** (4); **azala arrosa** (4); **bi arrosa** (5); **haize arrosa** (3); **harri arrosa** (4); **kolore arrosa** (12); **maglia arrosa** (18); **maglia arrosa jantzi** (3); **masailak arrosa** (3); **musu arrosa** (3); **paper arrosa** (3); **tunika arrosa** (3)

arrosak eta arantzak (3); **bi arrosak** (6); **ia arrosak** (3)

arrosaren atzetik (4)

marmol arrosazko (3); **zeta arrosazko** (6)

---

arrosaburu *iz* arrosaren burua.

Urrian, ez azkenengoan, **arrosaburu** ederrak ikusi izan ditut sasoi honetan nik Arantzazun: Negu usainik ez daukaten arrosa apain askoak, hori bai, erdi lotsatiak. Pello Zabala

---

arrosadi *iz* arrosondoa, arrosa landareen multzoa.

Ohi bezala auzokoen setter urduria zaunka bizian hasi da etxeen muga osatzen duen **arrosaditik**. Patxi Iturritegi

---

arrosadun *izond/izlag* aipatzen dena arrosa kolorekoa duena.

Logelako atea zabalik zegoen eta egongelatik errezel eta satinezko izara **arrosadun** ohe itzela ikus zitekeen. Sonia Gonzalez

Maisie, hura ere beltzez jantzirik, haren atzetik agertu zen, garai eta masaila **arrosadun**. Lopez de Arana

· Emakumeak dirudi guztiaren epizentroa, arrosa koloreko bufanda egiten ari den irribarre **arrosadun** emakumea. Eider Rodriguez

Johnek gerrikodun kapusaia eta feldrozko gris-**arrosadun** kapela jantzita zeuzkan. Lopez de Arana

---

arrosakara *izond* arrosa itxurakoa.

Begiek iluntasun **arrosakara** zorrotz eta erne arakatzen zuten bitartean. Jose Morales

Neska bere lekura itzuli zen; azal leuneko beso biluzi **arrosakarez** belaunak besarkatu, eta lurrean josi zuen begirada, begi beltzak behin ere kliskatu gabe. Jose Morales

---

arrosakolore *izond* arrosa kolorea duena.

Alain ihesi joan zen, kandela iraulirik, eraztun preziatu bat iruditu zitzaiona ateraz andre alajari hatzetik: baina ez zen kobre gainurreztatuzkoa baino, imitaziozko harritzar **arrosakolore** batekin. Juan Garzia

Eukalipto baltsamikoak eta noizbait gorrimin izandako etxe **arrosakolore** luze hura irudikatzea zen, hain zuzen, haren oroimenaren ohituretako bat. Juan Garzia

Berak ere, haitzean burdinaren mea **arrosakolorea** hautematen zuenean, zera, lagun zahar batekin topo egiten zuela begitantzen zitzaion. Juan Garzia

Itzultzean paper bat zekarren, noizbait gorribizi izana; orain, berriz, **arrosakolore**, mehea, koadrikulatua. Juan Garzia

Sedimentu poxi bat, **arrosakolorea**. Juan Garzia

---

arrosario *(orobat **arrosorio** ipar)* **1** *iz* katolikoen otoitza, Ama Birjinari eskainia, Aitagure bat, hamar Agurmaria eta Gloria batez osaturiko bost parte berdinek eta Letaniak osatzen dutena; otoitz hori errezatzea.

Biak pausuan baiginen, bizpahiru egunetarik elgarretaratzen ginen eta **arrosarioa** elgarrekin erraiten genuen. Marzel Etxehandi

Igande iluntze hartan, intxaurrondotik Goiok Etxeberritxoko logela leihoa bertatik bertara zuen eta, gelako argia piztu zelarik, pare parean ikusi zuen **arrosariotik** itzuli berria zen Joakina soinekoa eranzten eta biluz biluzik. Joseba Sarrionandia

Bezperetan, ez balin bazen ere mezan bezenbat jende, salmoak kantatuak izan dira bildutasunekin eta **arrosarioa** errana kartsutasunekin. Herria

Floraren amak **arrosarioa** errezatzen zuen, latinez, hala ikasi zuelako, nonbait; eta noizbehinka, misterio bakoitzaren amaieran, "este hombre no está bien" errepikatzen zuen, baina besterik ez. Ramon Saizarbitoria

Aratsaldea ere goiza bezain kartsuki zaiku joan, jende frango hor baitzagon oraino **arrosorio**, bezperak eta gurutzearen bidearendako. Herria

Beti beltxez bezti zen, Gabrielle, biloak gibelera luzatuak, mottoan bilduak, beti buru-orratz berekin, edergailu bakarra zuela **arrosorio** pikor lodi xuri bat. Michel Oronoz

Eta berriz ere hor ginen gutiz gehienak **Arrosario**-Bezperetako goizean bezain ozen eta kartsu. Herria

2 arrosarioa errezatzeko erabiltzen den sokatxo edo katetxo itxi aleduna.

Otoitzeko liburua eta **arrosarioak** hartzen ditut. Marzel Etxehandi

Nire eri itsuek **arrosarioa** ezagutu zuten, zurezko bihi larri eta xeheetan harilkatua. Aingeru Epaltza

Nik beti **arrosarioa** eta ganibeta sakelan ditiat. Piarres Aintziart

Arrosarioa patrikatik atera nuen. Aingeru Epaltza

Gere aulkian uzten zuten, sukaldeko zokoan, ikusten ez zuen beheko suari begira, **arrosarioa** aletuz. Ramon Saizarbitoria

Kantuz ari ziren zenbait, bertze batzu mar-mar-mar otoitzean, **arrosorio** bat eskuan. Michel Oronoz

Ama Birjinaren irudi bat gurtzen zen ermitan, eta Ama Birjina horrek **arrosario** eder bat zuen eskuetatik zintzilik. Martin Anso

Arrebak eta biok horman zintzilikaturiko egurrezko **arrosario** higatuari begiratu genion. Berria - Kultura

3 irud/hed

Tomasek gure lehiakideen egunkarian irakurritako jakingarri makabro guztiaren **arrosarioa** aletu zion. Aingeru Epaltza

Jakintsuen jakintzaren, informazioaren eta kulturaren munduko gauzak; ezin konta ahala gauza erraz eta merkez egindako **arrosario** azkengabe bat osatzen dute: azkengabea, hutsa bera bezala. Iñaki Segurola

Orain dena da akordioa, adostasuna, elkar hartu beharra, bat egin beharra, ongi etorri beharra, eta **arrosario** zuri hori bizitasun falta latz baten, bizi-beldur baten, seinale da. Iñaki Segurola

Gaua zarratu eta Goio han egon zen oraindik luzaroan, saguzarrek airean ehuntzen zuten beste **arrosario** tristeari begira. Joseba Sarrionandia

4 ***arrosario-belar*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Askimotz, **arrosario-belar**, aski, brena edo otsatz ("Cynodon dactylon") Poaceae familiako landare belarkara da. ETC-entziklopedia

Nahi izanez gero, une baterako gorputza abandona dezake, eta berak eraikitako lezoitik betidaniko paisaia arrunta ikus: sumendiko legarretan **arrosario-belar** gogorrak; banana-saila, eta haren harea gorria; bide aldera okertzen den alanbre-sarea, pendizean txikiagotua. ETC-literatura, saiakera

Asun, getozka eta **arrosario-belarrez** estalita daude bideak, estalita haurren jolasaldiak, herabetik gutxi duten amorante nerabeen musuak eta zuhaitzen itzalak. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arrosario baten (4)
arrosarioa eta bezperak (3)

---

arrosatar *izlag/iz* Arrosakoa, Arrosari dagokiona; Arrosako biztanlea.

Baigorriko **arrosatarrak** eta itsasuarrak ginituen elgarren desafioan finalerdi huntan. Herria

Guk Baigorriko batasunaren **arrosatarrak** erran dugu beti, bakotxari berea! Herria

---

arrosategi *iz* arrosa-landareak dauden lorategia.

Ordu biak aldera, eguzki-eguzkitan, **arrosategian** paseatzen ari nintzen... loratzen hasi berriak diren udazkeneko arrosen artean. Josu Zabaleta

Eser gaitezen hemen -esan zuen **arrosategiaren** ondoko banku bat seinalatuz-. Bernardo Atxaga

---

arrosatu, arrosa(tu), arrosatzen **1** du *ad* ureztatu.

Emakumeak segitu du loreak **arrosatzen**. Pablo Sastre

2 (era burutua izenondo gisa)

Era berean, Goizek denbora jakinean egunsenti **arrosatua** eterrean zehar zabaltzen du eta argia irekitzen. Xabier Amuriza

---

arrosatxo *iz adkor* arrosa xumea.

Espaloia arineketan zeharkatu bide zuen... korrika, gela lurrintsura, **arrosatxo** horiak eta Camilla zain zituenera itzultzeko lehenbailehen. Mirentxu Larrañaga

Arrosatxo hori bitxiak zeuden barruan, euren zurtoin, hosto eta arantzatxo bigun gorri odol-kolore eta guzti. Mirentxu Larrañaga

Nolako usaina?: **arrosatxoena** eta hik nahi duan guztiarena. Jose Morales

---

arrosel *iz* bisigua.

Badakizu kosta txarrak botatako sareak dena harrapatzen duela, **arrosela** eta kolaioa. Koldo Izagirre

---

arrosetoi *iz* zirkulo itxurako leiho handia, beiratez osatua.

Historio luze batek beztitua zuen, historio labur batek garbi garbia hemen erakusten digu, bere perfekzio geometrikoan lau dorre, **arrosetoi** bat, sinplea, eta elizate propia. Piarres Aintziart

Elizatea baino harriagarriagoa da, naski, murru harresiaren begi bezala den **arrosetoia**. Piarres Aintziart

Saint-Eustache han behean zagok bere **arrosetoiarekin**, eliztarrik gabe, eta haren ondoan, bitartean, merkatua hedatzen ari duk, Margolariak elizaren albo bateko ataria zeukan parez pare, haren **arrosetoiekin** eta haren erdi-puntuko bi leiho lerroekin, geltoki moderno itxurako masa ikaragarri haren markoan sartua. Karlos Zabala

Zegoen tokitik, zeharka baino ezin zituen ikusi haren **arrosetoiak**, haren erdi-puntuko leiho zabalak, haren kanpandorre txikia, haren arbelezko teilatuak. Karlos Zabala

Solairua moketa batek gordetzen zuen, eta **arrosetoi** bihurriak eta izarrak nahastekatzen ziren haren irudietan. Karlos Zabala

---

arroskilla ik **erroskilla**.

---

arrosondo *iz* arrosa landarea.

Arrosondoaren lorea udaberrian, lilia iturburu inguruan eta Libanoko landaretza udan bezala. Elizen arteko biblia

Euririk egin ezean, **arrosondoak** fumigatuko ditu, horixe du egin beharrekoa. Patxi Iturritegi

Garrasiek ez zuten hondatu **arrosondoen** edertasuna. Karlos Linazasoro

Arrosondoen azpira zuzendu zuen esku-argia. Koro Navarro

Besotik heldu zidan eta **arrosondoetaraino** eraman ninduen. Koro Navarro

Txantxangorria niri begira zegoen aitaren **arrosondo** gainean. Mirentxu Larrañaga

Arrosondo -zurezko kutxatilan. Ander Irizar

Arrosondo -zurezko inkrustaziodun eta belus gorriz forratutako kutxatila hura izan da. Ander Irizar

Bebarruko arkuaren aurrez aurre itzaltegi bat zegoen, makilaz eratua, eta haren gainean basa-**arrosondo** baten adarrak bermatzen ziren. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrosondo zurezko kutxatilan** (3)

---

arrosorio ik **arrosario**.

---

arrotz *(ETCn **15.808** agerraldi)* **1** *izond/iz* aipaturiko herrikoa ez dena, atzerrikoa; atzerritarra; besterena; ezezaguna.

Posadan diren **arrotzen** galderek Billieren belarriak mintzen dituzte. Pablo Sastre

Izan ere, beren hizkuntza baizik ez zekiten mintzatzen **arrotz** haiek; ez zegoen, beraz, elkar ulertzeko modurik. Josetxo Azkona

Etorkizunak ez nau obsesionatzen agerpen **arrotz** batek bezala. Josu Zabaleta

Itzal **arrotz** orotaz urrundik ohar zitekeen. Eneko Bidegain

Aita zenari aditua naiz aire-gaiztoak jo eta bere hartan fundi zedin desiratu niola **arrotzari**. Aingeru Epaltza

Espainiako II. Errepublika aldarrikatu zen urtean agertu zen Ama Birjina Ezkion, ezkertiar sinesgabeen eta mundu **arrotz** baten beldurrez bizi zen gizarte baten mamuak haizatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Mendi erromerietatik, gazte jendearen berotik egotzi zituen gaizki jotako tresna **arrotz** hark. Iñigo Aranbarri

Intrusoa, **arrotza**, yankia da eleberrian, orain wasp deitu gogo dugun horietako bat. Iñigo Aranbarri

Garatzeak eta gaurkotzeak, baina, moldatzea eta aldatzea esan nahi du, zentzua eta arrakasta izaten jarrai dezan (ez, ahal dela, zentzurik gabeko arrakasta) egungo kulturbide erdi-**arrotz**, konplexu eta aldakorretan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Arima bera ere txunditurik geratzen zen, gorputz **arrotz** batean haragituta. Koro Navarro

Aurpegia neskaren aurpegiaren parean jartzean sentitu zuen azal **arrotzaren** goxoa. Unai Iturriaga

Polita da hiri **arrotz** batera euria ari duela iristea. Lourdes Oñederra

Une hartan hiriak, ordura arte bere giro niretzat guztiz **arrotz** eta zentzugabean bilduta, bizia hartu zuen berriro; une hartan nik ere bizia berrartu nuen, gertu sumatu baitzintudan, zu, nire betiereko ametsa. Eduardo Matauko

Beraz, batzuentzat euskara bigarren mailan gelditzen da, itxurak egiten lasterka baldin badabiltza ere, beste interes **arrotz** batzuek menderaturik baitabiltza korrika. Pello Salaburu

Orduantxe ulertu zuen Joxanek, neure bixotza... hiri **arrotz** hartan hainbat urte eman osteko benetako altxorra. Paddy Rekalde

Eta beti egoten zen isilune bat, harik eta auzoak, edo **arrotzak**, edo errekardariak, edo koinatuak edo dena delakoak ulertzen zuen arte. Anton Garikano

ez nituen nik orduan hitz **arrotz** eta anpurus horiek oso ongi konprenitzen. Txillardegi

Ailegatu berritan, hizkuntza **arrotz** bat, hitz ostrogodoak, zer arraio nahi zuen nigandik? Fernando Rey

Desterratuari, lur **arrotzean** dabilela, nondik datorren ahaztu eta galduta sentitzea baino ezer txarragorik ezin zaio gertatu. Jon Maia

Arlote horietako bat, momentu hartan, bidera atera zitzaion adin bateko jaunari, zeina, bidenabar esan, ongi jantzita zegoen eta bidaiari bat iduri zuen, hiri **arrotz** bateko monumentu eta edertasunak ikustera aterea. Matías Mujika

Da Ruak ezezko keinua egin zuen buruaz, asko ibiliagatik ere, munduaren zati handi bat artean **arrotz** eta ezezagun baitzitzaion. Felipe Juaristi

Goiz-goizetik, hego-mendebala agertu zen ustekabean, bezero **arrotz**, aire berriekin, zeruak arin, lehor samar. Pello Zabala

Horren froga, erlijio **arrotzak** Japonian zein erraz kokatu diren, eta zein arretaz eta maitasunez hartu dituzten han .48. Iñaki Iñurrieta

Berrogoi ta hamar karabinero horiek, beren sendi edo familiekin, eta gero aduanako enplegatuak, poliziak eta beren emazteak, biltzen dira hiru ehun **arrotz** hurbil. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Arrotzak eta etorkinak gero eta ugariagoak izan arren, borreroak ez du sekula elkar ulertzeko garaian arazorik izan. Karlos Linazasoro

-Esaiozu nola duzun izena - adierazi behar izan zion amak umea ez baitzen gai halako galdera bati erantzuna emateko hizkuntza **arrotz** batean... J.M. Olaizola "Txiliku"

Garai hauetan ez dugu **arrotzik** nahi geure herrian, arma-gizon sendoak ez badira behintzat, fideltasuna eta laguntza fidagarria aski frogatua dutenak. Agustin Otsoa

Gailuaren jatorria antzinakoa da; izan ere, aspalditik dakigu umetokian gorputz **arrotz** bat ezarriz gero emakumearen ugalkortasuna gutxitu egiten dela. Luis Elberdin

Katena piztu zuen lehenengoz, neskak esku leunen artean txiskerodun esku **arrotzari** heldu bitartean. Sonia Gonzalez

Proteina **arrotz** bat gorputzean sartzen den guztietan (gehienetan gaitz kutsakorren baten organismoak izaten dira, baina ehun transplantatu bat ere bai inoiz), erreakzio immunologiko bat sortzen da. Irene Aldasoro

Zurekin bizi den lagunak edozein mementoan aurkitzen ahal zuen itzulpen **arrotz** madarikatu hura... Garai hartan, hiriko parke edo baratzeetan ibiltzen zinen beraz, klandestinitatean irakurtzeko. Ramuntxo Etxeberri

Laket zait bakarrik egoitea eta ixilik, leku ezezagun batean naizelarik jende **arrotzen** erdian. Piarres Aintziart

Leihotik oilo **arrotz** bat bere baratzean aztarrika ikusten zuen edonork eskubidea zuen fusila hartu eta bi aldiz tiro egiteko hari: in fraganti behar zuen, haatik. Juan Garzia

Eta zer dira Eneko eta Eneka horiek guztiak, gure Carlos, Fernando eta Felipe, edo Carlota, Isabel eta María Cristina jator askoen aurrean, zokora eta bazterrera kondenatu nahi dituzten izen **arrotz** ezdeusak baino? Joan Mari Irigoien

-Halako egunean **arrotz** bat etorriko da, eta litekeena da galdetzea zenbat probintzia dituen Euskal Herriak. Joxerra Garzia

Hori dela eta, nahiz eta euskaraz idatzi, hizkuntza ofizialaren arau ortografikoak hartu dira oinarri, eta idazmolde **arrotzak** beti zailtzen du irakurlearen lana. Koldo Zuazo

Euria ari zuen, eta ni gainalde gorenean nengoen, ile-motots kaxkagorridun neskatxa **arrotz** hura zaldainean barrena lehorrera zihoanean, esku biak hatu banaz zamaturik, eta beraz niri agur-keinurik ezin eginik. Joxe Austin Arrieta

Berde-kaki kolorez beztitu **arrotzez** setiaturik zen plaza hertsia. Itxaro Borda

Ehunka izaki ezberdinetan antzaldatuz, denboraren joan-etorrian eraiki diren gudu **arrotzetan** parte hartuta, gizon nahiz emakumeen forma harturik, ezpata bezala pozoia baliaturik, neuk hil ditut Pertsiako Rijad Handia, Errusiako Alejandro III.a, Cuzcoko Tupac Amaru iraultzailea... ". Aritz Gorrotxategi

Ez natzaizu ari guk edo indar **arrotz** batek harria mugiarazteko erabiltzen dugun mugimenduaz, esaterako, gorantz jaurtikitzean; bere pisuaz lurrerantz abiatu eta jausten deneko mugimenduaz ari naiz. Imanol Unzurrunzaga

Horrelakoetan ezin dut ama onez eraman; nabari-nabari ikusten baitzaio **arrotz** bat naizela beretzat, eguneroko gauzez zer iritzi dudan ere ez daki-eta. Josu Zabaleta

Hizkuntza **arrotz** bat hitz egiten zutela, grezieraren antzekoa, baina zaharragoa. Felipe Juaristi

Ezertxo ere ez, Karmele, hain baitzen hura niretzat ordurako **arrotz**. Joan Mari Irigoien

Toponimo hori ene beharrientzat ez da **arrotz**. Piarres Aintziart

Begiluzearengana itzuli zen neska, zerbait oihukatu zuen hizkuntza **arrotz** batean. Jon Alonso

Hala ere, ez nengoen gustura herri **arrotz** hartan, etorkin guztiak bazter samar atxikitzen gintuztelako. Javi Cillero

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Karriota betetzen da, mukurutzen astean behin, eta pagatzeko orduan herrokan jartzen, karta bankarioa eskuan nixtan, ahalaz agerian: eguerdiko bazkarian zer kozina kezka bakartzat daukan jendearen erdian, tribukideen **arrotz** izaera usna daiteke. Itxaro Borda

Mahaian eseri, eta halako **arrotz** -sentsazio batez jarri nintzen argazkiari begira, gorputzera egokitzen ez zaizun soineko handi itsusi batez publikoaren aurrean pianoa jotzen baino deserosoago. Anjel Lertxundi

Horretarako zeuden, **arrotz** -jendea beldurtzeko eta haiek baserritik urruti edukitzeko. Xabier Etxabe

• **3** (predikatu eta adizlagun gisa)

Gizakiaren bizitzaren iraupena ezin liteke **arrotz** izan, ez bizitzarekiko, ez gizakia berarekiko. Piarres Xarriton

Azken buruan, horixe izan liteke idazlea sorlekutik bereizten duen amildegia: bere buru zaharraz **arrotz** egiten ari den mundu gero eta azalago batean bizi dela ohartzea: Patziku Perurena

Anaiak, ostera, gazteena ere bazen aldetik, batxilergoa egin zuen eta guri ere ez zitzaigun **arrotza** egin. Ana Urkiza

Utz orain hire adinari **arrotz** zaizkion gauza guztiok eta egiek arin eta gogoz gazteei leku: nahitaezkoa duk[a]. Xabier Amuriza

Gustavo Adolfo Bécquer-i Euskal Herria ez zitzaion **arrotz** gertatu. Martin Anso

Maupassanten ipuinak oso modu errealistan aurkezten du eguneroko mundua, eta poliki-poliki **arrotz** bihurtzen du. Josu Zabaleta

Lerroak **arrotz** iruditu zitzaizkidan, irakurtezin, eta paragrafo bakoitzean sei bider, zazpi bider, mila bider geratu behar izan nintzen, motel, ezereza ulertzeko. Lander Garro

Azkenik, ulertu nuen goiko solairutik heltzen zitzaizkidan zarata eta durundietan zetzala gakoa: erabat **arrotzak** ziren niretzat. Iban Zaldua

Zergatik, beraz, ezkontza esekita utzi, **arrotza** zaion kari batetik? Andres Urrutia

Balizkoan **arrotz** higatuko zela Euskal Herriko bere xokoan. Itxaro Borda

Buruaz baietz esan zuen neskak eta Napumoceno jauna begira gelditu zitzaion nerabe hari, alaba izan arren **arrotz** zitzaion neska hari. Bego Montorio

Oso lekukoa sentitzen naiz baina, era berean, leku guztietan nahiko **arrotz**, "ez banintz hemengoa" bezala, Sarrionandia parafraseatuz. Ana Urkiza

Esandakoa ulertzeko, argi utzi behar dugu Erdi Aroko eskema guztiz **arrotz** zaiola irakurle moderno orori. Xabier Kintana

-Nire irudia biluzik ikustea **arrotza** egiten zait. Jasone Osoro

Oinordetza dela eta, erromatarren lehendabiziko araubideak zuzenbide politikoak zuzenduak dira; horrexegatik, araubide horietako xedapen batzuk **arrotz** egiten zaizkigu. Andres Urrutia

Gainerakoan ez dio alde handirik sumatu, eta horrek poztu egin du, **arrotzago** egingo zitzaiola uste baitzuen. Patxi Iturritegi

Horregatik ematen dugu hiztegitxo hau, zenbait hitzen azalpen laburra eginez; izan ere, horietako zenbait guretzat **arrotz** gertatuko lirateke, beren jatorrizko testuinguruan kokatuko ez bagenitu. Askoren artean

Arrotz sentitzen nintzen, eta usurpatzailea, Ingori gertatutakoaren errudun sentitzeko punturaino. Anjel Lertxundi

Elizondo agertu da halako batean, eta **arrotz** zaiola pentsatu du Damianek. Hasier Etxeberria

Hasieran, lan handia eman zidan liburuaren hizkerak, hain zitzaidan **arrotza**, baina ez nuen etsi: lehen kapitulua dozenaka bider irakurri nuen; gero, aldiz, errazagoa egin zitzaidan dena, nire bizitzan irakurri dudan libururik zirraragarriena bihurtzeraino. Juan Kruz Igerabide

Jainkoari **arrotz** zaionak eta bera bezalakoa ez denak ezin ase eta kontsola dezake gizakia: aitzitik, sofrikizun litzateke beronentzat. Joan Mari Lekuona

Ontzietako mastek, eskifaien aldarriak, kaioen hegalaldiak, lehorrekoen joan-etorriak, den-dena zitzaidan **arrotz**. Edorta Jimenez

Pedantekeria honekin, gaiari guztiz **arrotz** zaizkion aipuak sartu behar zoro honekin, giza izaeraren ezagutza falta nabarmen honekin, gaizki harilkatutako eta gaizkiago ehundutako kezka hauekin, gauzatzen dute jurisprudentzia, beren arloan izen handia duten gizon batzuek. Juan Martin Elexpuru

Neure buruari begira-begira egon nindunan, neure irudia lausotu eta erabat **arrotz** egin zitzaidan arte. Eskarne Mujika

Zeinen **arrotz** bikote haiek gure inguruan dantzan, ametsetakoak iduri, gurma zarratuan lauso ikusten nituen, neska ezezaguna eta biok ginen errealitate bakarra han, izerdi hura, erremin hura gorputzaren zuztarrean. Koldo Izagirre

Lurralde hartan, erran gabe doa, **arrotz** nintzen senti. Jose Angel Irigaray

Ez dira ohartu ere egiten, nola egiten gaituzten **arrotz** geure leku honetan. Hasier Etxeberria

Zer ez zait, bada, **arrotza** gertatzen! Anjel Lertxundi

Gerra bukatuta Friburgora itzultzean, liburu-saltzaileari honela atera zitzaion barrenetik: "Orain **arrotz** egiten zait nire Alemania!". Fernando Rey

Nire emaztea, nire seme-alabak, nire lana, nire iritziak, den-dena **arrotz** egiten zitzaidan. Bernardo Atxaga

-Ez da ona nor bere herrian **arrotz** sentitzea. Jon Muñoz

Ez zaizkie **arrotzegiak** bera bezala mendi hegaletan eraikitako auzoetan ibiltzen direnei. Pello Lizarralde

Zer ikusirik ez omen du, eta bera da ia-ia ekintzaren ardatza! Hor duzu mutikoa, ia beti amaren ondoan, izuti, apal... Honen errua da! Horrexena da agian egoera mingarriena: **arrotz** sentitzen da, beste inor baino arrotzago; eta apaltasun larri bat sentitzen du gaixoak, etxean horrela, errukiz, jaso dutelako... Josu Zabaleta

Artearen mundua **arrotz** zaio, eta ez daki nor izan daitekeen delako miserable hori, ezta ideiarik ere. Patxi Iturritegi

Gaia **arrotz** samarra zaigulako, aldarte onegirik ez dugulako, kontzentratu ez garelako, publikoak zer espero dezakeen ez dakigulako... gerta gaitezke zer esanik ezean. Andoni Egaña

4 ***arrotz-etxe***

Bi gazteak **arrotz-etxe** batean zeuden ostatuz, baroiaren etxean hiru gela txiki-txiki besterik ez baitzeuden. Xabier Olarra

5 ***arrotz etxekotu***

Bildu eta jan, arbaso zahar **arrotz etxekotu** haien ohoretan. Patziku Perurena

6 ***arrotz gela*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi* ***1****)*

Arrotz gelak ezarri zituen alokairuan. ETC-prentsa

7 ***arrotz herri***

Ez du holakorik nahi judu armadaren lehen aintzindariak, Yasser Arafaten omena haundi bailitake **arrotz herrietan**. Herria

Bushamerikano presidentak hitzemana zuen, botz biltzen ari zelarik, ahal bezain guti sartuko zela **arrotz herrietako** aferetan. Herria

Arrotzak **arrotz herrian** beude: Euskal Herria ez da Salgai. Itxaro Borda

Argi biziak argi egingo du lurraren azken mugaraino. Urrutiko **arrotz-herri** asko eta lur-muga guztietako bizilagunak etorriko zaizkizu Jauna gurtzera, zeruko Erregearentzat eskua bete emari dakartela. Gizaldi eta gizaldiek alaituko zaituzte. "Hautatua" izango duzu izena menderen mendetan. Elizen arteko biblia

8 ***gorputz arrotz***

Alde batetik, aurkituko dugu kultur elementu batek, bera eroso dagoen gizarte-gorputzean kaltegabea edo onuragarria izan delarik, ondorio berri eta suntsigarriak izan ohi dituela sartzen den **gorputz arrotz** batean; lege hau esaera honetan laburbiltzen da. Iñaki Mendiguren

Ekolaliak hotsak izozten ditu, denbora geldiarazten du, "**gorputz arrotz**" edo oihartzun gisa gordetzen ditu gogamenean estimuluak, inplanteak balira bezala, arrotz-bizitzari uko egin gabe. Xabier Olarra

Gailuaren jatorria antzinakoa da; izan ere, aspalditik dakigu umetokian **gorputz arrotz** bat ezarriz gero emakumearen ugalkortasuna gutxitu egiten dela. Luis Elberdin

Ez gara subjektu ezagutzaile hutsak ("aingeruburu hegaldun soingabe"), zintzilika dugula **gorputz arrotz** bat, gorputz biziak baizik. Askoren artean

Koskoosh zaharrari oroitzapen asko etorri zaizkio gogora, batez ere altze bat ehizatu zuen egunekoak, edota gorputzez **gorputz arrotz** zuri batekin borrokatu zen egunekoak. Patxi Zubizarreta

Arima bera ere txunditurik geratzen zen, **gorputz arrotz** batean haragituta. Koro Navarro

9 *sustrai arrotz* *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)*

Auxinak albo-sustraiak eta **sustrai arrotzak** sortzea sustatzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kimu gazteak eta helduak ere ezberdinak dira elkarren artean, horrela, kimu gazteak argalak eta malguak dira eta **sustrai arrotzak** dituzte igotzeko. ETC-entziklopedia

Euskarririk izanez gero, hormetan, harkaitzetan nahiz zuhaitzetan gora hazten da eta 25-30 metrotaraino igo daiteke dituen zurezko **sustrai arrotzei** esker. ETC-entziklopedia

Aukera baliatu nuen kontinente ezezagun hura, **sustrai arrotz** hura arretaz begiratzeko. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arrotz aire** (5); **arrotz aire bat** (5); **arrotz bat** (59); **arrotz batean** (26); **arrotz batek** (22); **arrotz batekin** (7); **arrotz bateko** (5); **arrotz baten** (38); **arrotz batera** (8); **arrotz bati** (7); **arrotz batzuk** (7); **arrotz bezala** (8); **arrotz egin** (7); **arrotz egiten** (25); **arrotz eta erromes** (6); **arrotz haiek** (9); **arrotz hari** (6); **arrotz hark** (5); **arrotz hartan** (7); **arrotz hori** (5); **arrotz horiek** (6); **arrotz hura** (13); **arrotz izan** (13); **arrotz sentitzen** (16); **arrotz zaion** (7); **arrotz zaizkion** (8); **arrotz zitzaion** (6); **artean arrotz** (5); **bi arrotz** (6); **emakume arrotz** (5); **erabat arrotz** (5); **euskara arrotz** (6); **ez zitzaidan arrotz** (5); **gizon arrotz** (6); **gorputz arrotz** (7); **guztiz arrotz** (7); **hain arrotz** (12); **herri arrotz** (5); **hiri arrotz** (16); **hitz arrotz** (8); **hizkuntza arrotz** (19); **hizkuntza arrotz batean** (9); **jentil arrotz** (9); **mundu arrotz** (7); **orain arrotz** (5)
>
> **arrotza balitz** (6); **arrotza da** (16); **arrotza dela** (6); **arrotza den** (9); **arrotza egiten zitzaion** (5); **arrotza gertatzen** (5); **arrotza iruditu** (6); **arrotza izango** (6); **arrotza zaion** (8); **arrotza zen** (16); **arrotza zitzaidan** (7); **arrotza zitzaion** (6); **bezain arrotza** (5); **erabat arrotza** (7); **guztiz arrotza** (9); **hain arrotza** (6); **hori arrotza** (6); **izen arrotza** (5); **jende arrotza** (6)
>
> **gero eta arrotzago** (9)
>
> **arrotzak egiten** (8); **arrotzak izan** (6); **guztiz arrotzak** (7); **jainko arrotzak** (27); **zaldun arrotzak** (5)
>
> **hizkuntza arrotzean** (5); **lurralde arrotzean** (6)
>
> **jainko arrotzei intsentsua** (7)
>
> **arrotzen artean** (7); **arrotzen atzetik** (5); **jainko arrotzen atzetik** (5)
>
> **jainko arrotzengana** (7)
>
> **hizketa arrotzez mintzatzea** (6)

---

arrotzaldi *iz* arrotz gisa pasatzen den denbora.

Geroztik urte batzuk irago dira, eta hona non Peter Sloterdijk filosofoaren "Munduarekiko **Arrotzaldia"** liburua espainolera ekartzean, berriz ere burutaziorik ederrenetakoa horixe berbera iruditu zaion Eduardori. Patziku Perurena

Urteen haize-kirriak bultzaturik, beti-betiko **arrotzaldira** abiatua zen. Jon Muñoz

---

arroxa **1** *izond adkor* arrosa.

Bai, eguzkia hor nonbait dago, ganduak arrasto **arroxak** dauzkan aldean edo. Bernardo Atxaga

Lauriek gutun haiek zetazko zinta **arroxa** batez biltzen zituen, eta salmahaiko kaxoi ttiki batean ezkutatzen. Berria - Kultura

Jertsea aukeratzerakoan, orduantxe sortu zen eztabaida, ezin setatiago jarri bainintzen jertse lila batekin, zeinak aurreko aldean lore **arroxa** batzuk baitzituen, hau nahi dut, hau nahi dut, eta hau nahi dut. Joan Mari Irigoien

Zozoak beleari "lore **arroxa** duk, arantzik gabea, erretorika, Hola, Pronto antzekoa" hamarreko dezima. Patziku Perurena

Azukrezko makila **arroxa** bat eskuetan hartzen ari nintzela, ferietan saltzen dituzten horietako bat. Jon Muñoz

Middle class-eko etxekoandreek marmeladazko tostadarekin batera 'bai basatiak eta pobreak direla auzo horretakoak', esan dezaten gosari garaian, ondoren 'be careful, darling' -kontuz ibili, maitea-, bata **arroxaz** jantzirik, atetik, lanera doan senarrari abisua emateko. Iñaki Zabaleta

Bekatu bideetatik eta arriskutik ni aldendu nahian nire adiskide hori, umetxo bati erosi berri zaizkion zapatilla **arroxak** putzu-zuloetan ez direla sartu behar esaten zaion doinu berarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nire bi titiek salto egin zuten aske, xamurrak eta ederrak bi ilargi beteen antzera, haien koroa **arroxak** gora begira zeuden kasik. Karlos Zabala

Zer egin zuen Rosek harekin, galdetu zuen Ramsay andreak berekiko, zeren mahatsa eta udareak, arrasto **arroxako** maskor zakarra, platanoak antolatzeko moduak, gogora ekarri baitzion itsas zolari ostutako trofeoa. Anton Garikano

Baita "kolore"-tako saioak ere: bertso-afari **arroxa**, beltza, berdea. Andoni Egaña

Gurutzeari zintak lotzen ari ziren, **arroxak**, urdinak, zuriak. Bernardo Atxaga

Bada, han, nunbait, mendixka baten pean, bixika belarra deitzen dena; lore apal bat, **arroxa**-bizi, flokaka sortzen dena. Herria

Ezin izaten ditut begien bistan ikusi **arroxa** koloreko piltzar horiek. Joxe Austin Arrieta

Zer egin zuen Rosek harekin, galdetu zuen Ramsay andreak berekiko, zeren mahatsa eta udareak, arrasto **arroxako** maskor zakarra, platanoak antolatzeko moduak, gogora ekarri baitzion itsas zolari ostutako trofeoa, Neptunoren orritsa, Bacok sorbaldatik zintzilik daukan mahats tortoa (koadroren batean), leopardo larru eta gorri eta urrez jauzika doazen zuzien artean. Anton Garikano

Nola nabarmentzen zen orpo **arroxeko** txulo borobil hura! Anton Garikano

2 irud/hed

Betiko topiko ergelenak berriro alegia, filosofia **arroxa** batean orain, betiko eskema dikotomiko sinplistak, aspaldiko superstizio txobinoak, ilustrazioaren errebindikaziopean eginda alafede ilustrazioaren iseka maximoa. Joxe Azurmendi

3 ***arroxa-kolore*** ik **arroxakolore**.

---

arroxakolore *(orobat **arroxa-kolore**) izond adkor* kolore arroxa duena.

Etxeko salako pladour **arroxakolorean** zeuzkan hiztegiak eta entziklopediak eta hiztegi entziklopedikoak begiratu zituen, zer begiratu behar zuen ongi ez zekiela, arretaz baina trakets. Karlos Linazasoro

Lehen orriko argazki bakoitzean haurtxo **arroxa-kolore** mardularen gisa barrezka azaldu beharra, bestela ez bailukete berriro hautetsiko, Ez geunden gu, ordea, (psikologikoki) hartarakoxe, eta **arroxakoloreko** ezpain haiei begiratze hutsarekin konformatu ginen gonbidatu (gizonezko) guztiok, halabeharrez. Joxe Austin Arrieta

---

arroxin ik **erretxina**.

---

arroz **1** *iz* alor zingiratsuetan hazten den laborea *(Oryza sativa);* labore horren ale txuria, hainbat lurraldetako oinarrizko janari gertatzen dena.

Xurgatua zuen olio guztia **arrozak**. Jon Muñoz

Kafea edo **arroza** saltzen aritzen ziren herrialdeak izatetik alkandora edo kirol oinetakoak saltzera egin zuten. Iñaki Heras

Zizarez betetako **arroza** ematen zieten, eta usain txarreko okela. Karlos Zabala

Hogei pitxer tomate, bost kilo olo maluta eta lau kilo **arroz**. Josu Zabaleta

Katilu bat **arroz** egosi. Joseba Sarrionandia

Arroza egosten, lurrin zerrenda lapikoan gora. Joseba Sarrionandia

Amonak esan zuen hura guztia berriketa besterik ez zela, eta **arroza** aletzen ari den mamu baten hotsa bezain interesgarria. **Arroza** kaltetzen duten gaitzak eta intsektuak saihesteko pestizidak erabiltzen dituzte nekazari askok. Juan Kruz Igerabide

Arrozari erantsitakoa nolako, risottoa halako. Anjel Lertxundi

Niri, batez ere, perretxikoz, **arrozez**, tipulaz, porruz eta piperrez beteak gustatzen zitzaizkidan, tartean arrautza irakin gorringo-bigunak zituztela. Juan Kruz Igerabide

Emakume zahar bat ikusi genuen **arroza** garbitzen, zementuzko oin batean kokaturik zegoen kanilaren azpian, atari estu bateko izkina batean. Juan Kruz Igerabide

Naziek, beste hainbat kontzentrazio-esparruetako sistema bera aplikaturik, erreketa-gune bat ere eraiki zuten **arroza** zuritzeko eraikuntza hartan. Anjel Lertxundi

Zizareak kendu behar ziren, **arroza** jan baino lehen. Karlos Zabala

Ahatekia, **arrozarekin** eta barazkiekin. Eskarne Mujika

Imanolek, **arroza** arrautzekin jaten hasi orduko izan du ideia. Joseba Sarrionandia

Kulbat pixka bat -gorringoz, **arrozaz** eta haragi xehatuz egindako pastela-. Oso atsegina da ikustea jendeak nola erabiltzen duen irudimena **arroz** zuria paella eder bihurtzeko. Karlos Zabala

Bi kandela piztu ditugu eta sulamen argitasuna hegalka hasi da mahaiaren gainean, **arroz** zuria argituz eta arrautza frijituak erakutsiz. Joseba Sarrionandia

Hori bai dela **arroz** zuri gusturik gabekoari osagai onak eranstea. Luis Elberdin

Horrek esan nahi zuen lapikoko **arroz** guztia amaitua genuela. Juan Kruz Igerabide

2 (hitz elkartuetan)

Gertatu zen **arroz** ale bakar bat ere ez zegoela merkatuan. Bego Montorio

Arroz lastoz egindako zoru-estalkia. Ibon Uribarri

Klasean maniobra eta harrabots belikoak hasten zirenean paper bolak eta **arroz** aleak jaurtitzeko tutuluak ziren gure arma nagusiak. Joseba Sarrionandia

Arroz platera bertan utzi eta jaiki nintzen. Joseba Sarrionandia

Eskuetan duen platerean, ardiki-xerra bi, ilintien artean erretako patata bat, **arroz** koilarakada bat haragi-saltsan, eta kalabaza-xerra bat. Oskar Arana

Zoriontsu irudikatzen dut, dagoen lekuan, **arroz** platerkadarekin, ezpainetan irribarrea. Astean **arroz** platerkadatxo batek ez digu askorik konponduko, baditugu egoskariak jateko. Juan Kruz Igerabide

Arroz ura edan behar duzu batez ere. Josu Landa

Arroz -zopa bat hartu genuen, eta erosketak egin genituen. Juan Kruz Igerabide

Bazkalondoan, irratia piztu eta **arroz** -opila eta kafesnea zerbitzatu zizkidan. Javi Cillero

Arroz -budina bakarrik geratzen zen, eta zartagin erdi bat jengibre-ogi, oso ona atera ez zena. Anton Garikano

Interesgarria izaten zen emakume haiek ikustea -beren aurpegi nekatu eta **arroz** -hautsez estaliarekin eta alaitasun-itxurak eginez-. Josu Zabaleta

Arroz eta babarrun entsalada prestatu dut afarirako. Joseba Sarrionandia

Txerri xerra ogitan pasatua erosten zigun, edo **arroz** pastelak. Juan Kruz Igerabide

Mahabalipuran, Madrasen, lorito talde handi bat **arroz** alor batera joan zen jatera. Gotzon Garate

Arroz -alorretik ateratzen utzi baliote, ze neu nindunan bazterrera bota ez zuen bakarra. Anton Garikano

Arroz -lurretan lan handiak behar dira urak erabiltzeko, eta hartara jende askok du horretan lanbidea. Iñaki Iñurrieta

Etxe Goxon ez zen ageri **arroz** -sailik edo tabako-sororik, eta inork ere, inortxok ere ez zuen jipoitu. Anton Garikano

Dagoeneko ageri ziren zabaldiak **arroz** -soroekin eta laranja-arbolekin, barraka zuriak estalki beltzarekin. Josu Zabaleta

Arroz -landetan pertsonaia bati bizia ematen. Anjel Lertxundi

Bizitza ere *riso* da: maitasuna edo poza; baina baita **arroz** -landetako lana bezain gogorra ere. Anjel Lertxundi

Budismoa, sozialki **arroz** -laborantzako eskualdean sortu da eta bi mila eta bostehun urtetan ia holako lurretan bakar-bakarrik zabaldu da. Joxe Azurmendi

Aspaldi, landan, pertsona bat kolpeka hil zuela, **arroz** -soro bateko uhate batengatik borrokan hasita, eta gero ihes egin zuela. Juan Kruz Igerabide

Arroz uzta oso txarra izan zelako. Pello Salaburu

Kalamu sokaz lotutako **arroz** zakuak. Gotzon Garate

Kreditua genuen izkinako janari-dendan, **arroz** -saltzailearenean eta supermerkatuan. Juan Kruz Igerabide

4 ***arroz basati*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

'Arroz basatia barazkitxoekin' eta 'txangurroz betetako krepe ameslariak' plateren artean aukeratu behar zuen hasteko. ETC-literatura, saiakera

Duela 13.500-8.200 urteen artean gertatu omen zen "Oryza rufipogon" **arroz basatia** lantzean. ETC-entziklopedia

"Eta basatiagoa izan dadin, **arroz basati** puztua erabili dugu", aipatu du Saburdi tabernako arduradun Jorge Martinez de Aramaionak. ETC-prentsa

3 ***arroz-esne*** *(ETCn **69** agerraldi; orobat **arrozesne** ETCn **61** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **arroz(-)esne** agertzen da)* iz arrozarekin eta esnearekin egiten den jakia. ik **arrozesne**.

->01OsoJ01¬119<- Beno, zera, esker mila guztiagatik, **arroz** - **esnea**, elkarrizketa eta hori denaøø. ->00AtxB01¬92<- Behin batez, platerkada bat **arroz** - **esne** jaten ari nintzela, ondoan eseri eta amatxo gora eta amatxo behera hasi zitzaidan, eta ezertaz konturatzeko beta hartu baino lehen leihoa ilunduta zegoela ikusi nuen.

5 ***arroz frijitu*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Arroz frijitua Txinako arroz platera da, wok batean prestatzen dena. ETC-entziklopedia

Arrautzarik gabeko **arroz frijitua** mesedez? ETC-literatura, saiakera

Asiainek **arroz frijitua** begetalekin eskatu zuen. ETC-literatura, saiakera

Egin dezakezu mahaiko plateraren aurrean eserita geratu, hortxe muturrean duzun arrain zati miserableari eta **arroz frijituaren** koilarakadari begira. ETC-literatura, saiakera

Nasi goreng-a (**arroz frijitua**) da platerik zabalduena; dena den, satea ere (txitxi-burruntzia, kakahuete saltsa eta espeziak nahasturik) oso estimatua da. ETC-prentsa

Arroz frijitua prestatu zuten jatorri nigeriarra duten emakumeek, eta marmitakoa bertakoek. ETC-prentsa

6 ***arroz irin*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Arroz-irina (japonieraz mochiko eta turkieraz pirinç unu ere deitua) arroz mehe ehotuaz egindako irin arina da. ETC-entziklopedia

Osagaiak sinpleak dira: patataz gain, irinarekin jokatu beharra dago, **arroz irinarekin**, soja irinarekin, garbantzu irinarekin edo arto irinarekin. ETC-prentsa

Familietan, yuanxiao izeneko gozokia prestatzen dute - **arroz irinarekin**, eta azukrez betea-. ETC-prentsa

7 ***arroz lurruneztatu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arroz lurruneztatua. ETC-entziklopedia

8 ***arroz puztu*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Arroz puztua arroza oinarritzat hartuz ekoitzitako ale puztu mota bat da, normalki arrozaren erdigunea baporearen bitartez eta presio handitara berotuz ekoizten da, halere ekoizpen metodoak aldaera ugari ere baditu. ETC-entziklopedia

Arroz puztuko opil mordoxka bat prestatu dugu: puska txikitan moztu, eta haiei bota, honela. ETC-literatura, saiakera

Bloke betegarri hori **arroz puztuz** egiten da, modelatzeko aproposa delako. ETC-prentsa

9 ***arroz saldatsu*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Arroz saldatsua Levanteko arroz platera da, salda ugarian prestatzen dena. ETC-entziklopedia

Rissotoa zer den azaltzea bezalakoa da Donostia Kultura azaltzea; ez da paella bat, ez da **arroz saldatsua**, ez da arroz zuria. ETC-prentsa

Barazki eta muskuilu **arroz saldatsua**. ETC-prentsa

10 ***arroz zuri***

Hori bai dela **arroz zuri** gusturik gabekoari osagai onak eranstea. Luis Elberdin

Bi kandela piztu ditugu eta sulamen argitasuna hegalka hasi da mahaiaren gainean, **arroz zuria** argituz eta arrautza frijituak erakutsiz. Joseba Sarrionandia

Baietz esan nion, eta **arroz zuria**, frijol beltzak, haragi xehatuak eta zerri puska frijituak eskatu zituen. Jon Muñoz

Hala, ezin zuenez aldatu zenbait janariren barne-irudia, ideia, janari zuri eta beltzetarako joera hartu zuen: oliba beltzak eta **arroz zuria**, kafe beltza eta jogurta. Xabier Olarra

11 ***basa-arroz*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Basa arroz ("Zizania") laku txikietako eta urlaster lasaietako azaleko uretan hazten diren Poaceae belarrez osaturik dagoen generoa da. ETC-entziklopedia

Presoak **basa-arroza** jatera itzuli zirenean, akabo izurritea. ETC-literatura, saiakera

Aipatutako aldaki hori **basa arroz** gisa Himalayako haranetan hazten zenetik (15.000 urte inguru), arroza Jainkoak gizarteari egin dion opari oparoentzat hartu izan da. ETC-prentsa

12 ***bihi osoko arroz*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Bihi osoko arroza, edo osoko arroza ere deitua, azalik gabeko arroza da, kanpoaldeko azala edo gluma, jangarria ez dena, besterik ez zaiona kendu. ETC-entziklopedia

Hona hemen bitamina hori duten elikagai batzuk: olo malutak, **bihi osoko arroza**, arbendolak, gibela, arrautzak... ETC-prentsa

13 ***hiru gutziako arroz*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Euskal Herrian **hiru gutziako arroza** izenaz ezagunagoa da. ETC-entziklopedia

14 ***osoko arroz*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Bihi osoko arroza, edo **osoko arroza** ere deitua, azalik gabeko arroza da, kanpoaldeko azala edo gluma, jangarria ez dena, besterik ez zaiona kendu. ETC-entziklopedia

Hona hemen bitamina hori duten elikagai batzuk: olo malutak, bihi **osoko arroza**, arbendolak, gibela, arrautzak... ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arroz aleak** (3); **arroz budina** (4); **arroz esnea** (4); **arroz landa haietan** (4); **arroz landetan** (6); **arroz pixka bat** (3); **arroz zuri** (3); **arroz zuria** (9)
> **arroza ez** (3); **arroza jan** (3); **arroza landatzen** (3); **arroza zuritzeko** (4); **edo arroza** (3)
> **arrozaren nazioarteko** (3)
> **arrozari buruzko nazioarteko** (3)

---

arrozesne *(ETCn **61** agerraldi; orobat **arroz-esne** ETCn **69** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **arroz(-)esne** agertzen da)* *iz* arrozarekin eta esnearekin egiten den jakia.

Jertse lodiko gizon eskasa hurbildu zitzaigun postreen zerrenda luzea irakurtzera: flana eta **arrozesnea**, "etxekoak" biak. Aingeru Epaltza

Besterik ezean, berba batzuk ikasi behar izan ditut turkieraz, esaterako ohiko dudan menuarenak: *bira, çorba, döner kebab ve sütlaç*, "garagardoa, zopa, haragi errea eta **arrozesnea"**. Jon Arretxe

Arrozesnea eskatu dute biek. Joxerra Garzia

Igandean sobratutako **arrozesnea** jaten hasi zirelarik begietara behatu zion, gizonaren zabarra azaldu zion emazteak, "Ez hekien nola sortu zen jabego pribatua?". Koldo Izagirre

- **Arroz-esnea** ere egin dut. Jasone Osoro

Behin batez, platerkada bat **arroz-esne** jaten ari nintzela, ondoan eseri eta amatxo gora eta amatxo behera hasi zitzaidan. Bernardo Atxaga

Eta segi dezala, bera itzultzen denetan **arrozesnea** pronto egoteko baldin bada. Arantxa Iturbe

Eta gero fruta, jogurra edota **arrozesnea**. Paddy Rekalde

Zer, hartuko al dugu beste **arroz-esne** bat? Jasone Osoro

Nahiago zuen **arroz-esnearen** usainak igortzen zion lasaitasuna sentitzea. Jasone Osoro

Postrea zerbitu zenean jende asko hasi zen esaten gustu txarra zeukala **arrozesneak**, bai, garbi zegoen zerbait bota ziotela **arrozesneari**. Mikel Hernandez Abaitua

Halere, **arroz-esnez** beteriko bigarren ontzia mahai gainean jarri eta berriketan jarraitu zuten, gustura asko gainera. Jasone Osoro

---

arrozoin ik **arrazoi**.

---

arroztar *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *izlag/iz* Arrozekoa, Arrozeri dagokiona; Arrozeko biztanlea.

Ezkontzak Fabien Lazkarai Larramendikoak emaztetzat hartu du Pascale Artaberro **arroztarra**. ETC-prentsa

---

arroztasun *iz* arrotza denaren nolakotasuna.

Gakoa orduan zera da: atzerritartasun eta **arroztasun** horretan irautea, gauzenganako maitasuna hartuta bide-erakusle, ez garen eta inoiz izanen ez garen horretarantz abiatzeko. Berria - Kultura

Arroztasun berriren bat nabaritzen zigunean, bere baitan bildurik, zen baino uzkurrago jartzen zitzaigun. Anjel Lertxundi

Berthe amaizunaren **arroztasun** politiko osoa azalaraziz, Veneziako kanalen ertzeko Loredan famili jauregi ederretik aldegin zuen. Txillardegi

Bere burutik oinetarainoko begiratuagatik ere neskak gorde zuen segurtasun lasai asaldakaitz hark, irribarreak eta burua makurtzeko moduak, topaketa ezatsegin eta begiratu harrapari guztietatik bere adeitasunak eta **arroztasun** eskurakoiak defendituko zutela errugabetasunez jakiteak, dardarka jarri zituen mutilaren hatzak. Koro Navarro

Denbora hondargabearen igarotzeak guztiongan uzten duen haztaren seinale, haren marka ankerraren salaketatzat har liteke **arroztasun**-adierazpen hori. Xabier Mendiguren Elizegi

Txerrenek ez zuen eta ez du inor engainatzen, denek nabarmentzen diote **arroztasuna**. Anjel Lertxundi

Hiriaren **arroztasuna** ez zaizu horren bortitz gertatzen. Lourdes Oñederra

Gauaren koloreak eta Charlyren gidaritzak gure **arroztasuna** mozorrotuko zutelako esperantzan, albokoa baino ustelago eta koldarrago ez agertu nahiak baizik ez zigun itotzen handik firrindan lekutzeko gogoa. Aingeru Epaltza

Nationetik Chatelet Les Hallesra bideratu nintzen Place d'Italien barna, nigan errotzen zen **arroztasunak** hazten zituen ondorio latzak zerrendatuz: errorik ez neukan, ezein sensazio edo sentimenduri irekitzen zitzaion azal zulatua nintzen, mundu baten azkentzearen lekukoa. Itxaro Borda

Hizkuntzarekiko **arroztasunak**, erbestearen sentimentuak markatu zuen haren haurtzaroa. Berria - Kultura

Elkarrizketa hark lekua zureganatzen zizun **arroztasunaren** erdian. Hasier Etxeberria

Esan ohi da Erreforma protestantearen gainbeherak ekarri zuela Leizarragaren hizkuntza eredua baztertzea, baina, nire iritziz, ereduaren **arroztasunean** dago baztertuta gelditzearen arrazoi nagusia. Koldo Zuazo

---

arrozte *iz* arrotz bihurtzea.

Hurrengo urteetan eginen zituen urratsek are nabarmenago utziko zuten gure lagunaren **arroztea**: ezkontzea -nola eta elizaz! -, aitatzea... bene-benetako desertzioa

etsaiaren trintxeretara. Aingeru Epaltza

---

arroztegi *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)* **1** *iz* arrotzak eta eskaleak doan hartzen zituen etxea; ostatua.

-Bai zortzietan etorriko nuk, orduan ez diat logela bat atxikitzen **arroztegian**? ETC-literatura, saiakera

--- Lo eginen dugu Atharratzeko **arroztegian** eta goizik hartuko dugu mendiko bidea, mugara buruz. ETC-literatura, saiakera

Jainkotegiaren iparraldean XV. mendeko Andatarren dorretxea (sarbidea babesten zuena eta hiriko eraikinik zaharrena), metro batzuk aurrerago XV.-XVI. mendeko Portalea ikusgarria (**arroztegi** eta postetxe izandakoa) eta eskuinera XVI. mendeko Gobeotarren jauretxea ditugu, guztiak Buruileria plazaren inguruan. ETC-prentsa

2 irud/hed

Jatorrizko herritarrok **arroztegian** bizitzera kondenatzen gaituen eredua da Irlandakoa, eta ez gaude prest amu hori irensteko. ETC-literatura, saiakera

Donostiako herria hiria bihurtu ahala, euskal izaeraren nortasunarentzat **arroztegi** bihurtu da erdal identitatearen agintepean. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arroztu, arrozten **1** da/du *ad* arrotz bihurtu, orobat irudizko eta hedadurazko adieretan.

Bai, badirudi printzipio genealogikoak, Nlaz estutu ahalean MUNDUaz **arroztu** egin gaituela, atzenerako geure buruaz eta munduaz asper gaizto egiteraino antzutuz eta xirolduz. Apez hori, elizaren bide berrieri idekia, ez dute sekulan bere bazter lanek elizatik eta fede gaietarik **arroztu**. Patziku Perurena

Aspaldi **arroztu** nintzen kirolarendako. Aingeru Epaltza

Ez, ez nazala, Jainko gehiegizkoak bezalaxe, Arrazoi gehiegizkoak ere, munduaz sobera **arroztu**. Patziku Perurena

Munduaz **arroztuz** eta agortuz goaz, eta ez zaigu beste eskolarik erakutsi inon. Patziku Perurena

Asko herritar, beren ama-hizkuntza doi bat edo arras **arrozturik** zaukatelarik, berriz lotu dira euskararen ikasteari gau-eskolen bidez bai-eta mintza-lagun zenbaiten laguntzarekin. Herria

Orain, ohe gainean ihalozka, kirolerako aspaldi **arrozturiko** nire zango unatuek erremate fisikoa ematen zioten, oroz gain, gogo-gogoan neukan oinazeari. Aingeru Epaltza

Denborak, itzulbideko atzerapen eta deskuidoek **arroztu** dute gudari adinduna. Karlos Linazasoro

Hemen, heriotza **arroztu** egin dugu, ez dugu ikusi ere egin nahi, horregatik izan du azken urteotan heriotzaren inguruko negozioak halako gorakada, 'tanatorioa' deitutako asmakizun horrekin. Pako Aristi

Hor ere eskola giristinoetan daramaten xinaurri lana, euskara **arroztua** duten guneetan ere gela elebidunak xutik ezarriz, Angeluko Stella Maris ikastetxean bezala. Herria

Horra hitzño bat arrotza ginuena edo bederen **arroztua**. Herria

Egoitea kalte pilotariek, erditaraino ederki arizan dira baina gero sendi zuten pilota **arrozten** hasia zutela zenbaitek, akidura zerbaitekin. Herria

Zergatik **arrozten** gara beste eguzki batek berotutako herrialdeetara? Patziku Perurena

2 (era burutua izenondo gisa)

Esku **arroztuak** jaka mehera lerratu zitzaizkidan. Zein zen benetako arazoa, euskaldunok beren nortasunaz zuten ideia **arroztua**, nazionalismo usteldu bat, ala espainiar Estatua? Aingeru Epaltza

---

arruazuar *iz* Arruazuko biztanlea.

Ordukotz ezagutua zen **arruazuarra**, Deustuko Unibertsitatean eman hitzaldi aberatsekin, eta ere Euskal Unibertsitatekoak eta, nundik ez, Iruñean berean. Herria

---

arrubio *iz* arrabioa.

Da Ruak bazekien denboraldietan bihotz-begietan ezkutatzen den mina garela, **arrubioa** harri azpietan bezala. Felipe Juaristi

Pliniok esaten du, **arrubioak** itzali egiten duela sua. Patziku Perurena

Behar bada, gorputzean edo larruan izan bailezake **arrubioak** sustantzia ignifugoren bat. Patziku Perurena

---

arruinatu, arruina(tu), arruinatzen da/du *ad* porrot egin; porrot eragin.

Berak ligatzen daukan trebetasunarekin, ba omen zekien ez zela hotelak ordainduz **arruinatuko**. Berria - Kirola

Beharbada nire kolaboratzaileen kolorea ezaguna izateak subentzio guztiak galarazi dizkit eta **arruinatu** egin naute. Joxe Azurmendi

Nazione guzia **arruinatu** gaitu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zeharo **arruinatuta**, eta etorkizun beltza baino beltzagoa bere aurrean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

· *(era burutua izenondo gisa)* -Poeta **arruinatuaren** tximak dauzkazu -esaten dio andreak senarrari soilgunearen azpian ilea luzeegi, narrasegi hazi zaiolarik. Iñigo Aranbarri

---

arrunda *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* erronda.

Garaia izanen dunalarik baratzetik jalgitzeko eta gizakiek eraiki errealitate zalapartatsu eta gezurtiari buru egiteko, ezin garaituzko arma eskainiko dainat lurraren borobiltasunetik ez urruntzeko: Orfeoren lira bera, apoarmatu kusku **arrundaz** egina. ETC-prentsa

---

arrungura ik **arrangura**.

---

arrunkeria *(orobat **arruntkeria** g.er.)* **1** *iz* gizabidearen arauek gaitzesten duten egite edo esaldia. ik **arruntasun**.

Izenburu hanpurutsuen azpian **arrunkeria** baizik ez zegoen. Josu Zabaleta

Oporretan nagoenean, **arrunkeria** deritzot Mauleko gazteluko posta-txartelak igortzeari. Javi Cillero

Ez dituzu ukatuko nabarmenaren nabarmenez **arrunkeria** bilakatu diren egia horiek. Jon Muñoz

Hurrengo lerroetan kazetariak idazlearen deskripzioa eskaintzen du, eta "gorputzez gazte dago" eta halako beste **arrunkeria** batzuk esan ondoren, Ernest Hemingwayk Ordoñez kutuna ikustera elkarrekin joateko gonbita egin diola esanez eta haren ahotan "Ciudad Realgoa harrigarria izan zen" esaldia ipiniz amaitzen du berea Carlos Barrenak. Edorta Jimenez

Denboraz gaindi den orori lotzen zaion herdoila bera baino gaitz asekaitzagoa da tribializazioa: desitxuraketaren gailur demokratikoaz berdintzen ditu **arrunkeria** eta klasikotasuna, moda eta artea. Anjel Lertxundi

Bere duintasun bakarra, kontrastez, Broadwayen nagusi den **arrunkeriak** ematen dio. Bernardo Atxaga

Arrunkeriaz josítako hizkera. Berria - Euskal Herria

Entzun dute adjektibazioak ez duela **arrunkerian** erori behar, eta esango dizute orrialde bat gaizki idatzita dagoela baldin eta adjektiboen eta sustantiboen arteko elkarketan ustekaberik ez bada, nahiz xede orokorra gauzaturik egon. Juan Garzia

Prostituzioak gaixotasunera zaramatza, endekapenera; ezkontzak, berriz, **arrunkeriara**, erdipurdikokeriara. Josu Zabaleta

-Bada, ni, **arrunkeriara** itzultzeko irrikan. Aingeru Epaltza

Hain pozik ikusten nuen bere semearekin momentu zoriontsu hura bizi zuelako, ezen gaizki baineritzon zangoak azpian hartzen zizkidalako **arrunkeriarekin** berarentzat liluragarria eta perfektua zen egoerari, txikiena izanda ere, eragozpenak jartzeari. Ramon Saizarbitoria

Berdintasunaren eta **arrunkeriaren** garaira goaz ziztu batean. Patziku Perurena

Gogor salatzen zuen telebistaren gorabehera serioak eta arinak **arrunkeriaren** galgarekin berdintzeko joera ia naturala. Anjel Lertxundi

Nire gorpu-biltegi zehaztasunez beteak **arrunkeriaren** gailurra ematen zuen, ilunpeetako printzearekin borrokan ibilitako laguna argazki eta guzti ateratzearen aldean. Aingeru Epaltza

Horrelako ekimenak **arrunkeriaren** basamortuan jaiotako loreak bezalakoak dira. Berria - Kultura

Ez dago nobleziarik, eskuzabaltasunik gabe; ez dago mendekurik, **arrunkeriarik** gabe. Anjel Lertxundi

Badaki, halaber, bezeriak oso estimutan izaten dituela zerbitzu bereziak, espezialduak, **arrunkeriari** ihes egiten diotenak. Anjel Lertxundi

Nik zin dagit, halaber, ez dudala Arretxeren bertze libururik irakurriko, aspaldi honetan modan dagoen literatura irakurterraz **arrunkeriaz** beteaz kutsa ez nadin. Jon Arretxe

Bizitzaren **arrunkerietatik** urrun dabilenaren gosea da literatura. Pako Aristi

Kazetariek askotan **arrunkerietara** jotzen dugu neurketa baten garrantzia juzgatzerakoan, baina Malagaren aurkakoak, benetako finala dirudi. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Neure oroimenaren taulatik ditiat **arrunkeria** funsgabe guztiak ezabatuko, liburu-aipu oro, irudi, inpresio iragan oro, gaztetasunak eta oharmenak hara jasoak. Juan Garzia

Denboraren poderioz konturatu ahal izan naiz pertsona haien bizimodua eta beren inguruabarrak ez zirela beraiek esaten zuten bezain zirraragarriak, **arrunkeria** orokorraren geruzak estaltzen zituela nik miragarri uste nituenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Txoferko egingo dizut entzuteak eragin zion desatsegina identifikatzeko, egoerarekiko guztiz desegokia, **arrunkeria** nabarmenagatik. Jon Alonso

Zakar samar irten zait azkeneko **arrunkeria** hori, eta barkamena eskatu diot. Anjel Lertxundi

Modako **arrunkeria** ortodoxoan erortzeko. Patziku Perurena

Beste gai asko ingelesez -orain "ingelera" jarri da modan, zergatik dute **arrunkeriarik** arruntenek holako arrakasta irakasleen artean?-, jakina, eta beste hizkuntza batzuetan ere. Pello Salaburu

Elkarrizketa gogaikarria egiten duten bi muturrei ihes eginez, hau da, baserritarkeria gogorrari eta bufoikeriazko **arrunkeriari"**. Askoren artean

---

arrunki *(orobat **arruntki**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **arrunki** agertzen da)* *adlag* era arruntean, arrunkeriaz.

Arrunki jantzia ibili ohi zen, trajerik gabe, baina uniformaturik zihoala ematen omen zuen, halakoxea baitzen pausajean ere erakusten zuen zeremonia. Joxean Agirre

Arrunki kezkakeria deitzen da geure iritzitik eta gogotik sortzen dena; alegia, nik neure gogoz bekatu ez dena bekatu bihurtzen dut. Patxi Altuna

Arruntki ingeles ontziek ez baitzuten haizu izaten errege Filiperen mendeko portuak jotzea. Edorta Jimenez

Gainera, **arruntki** erraten dena, hots, Naturak batzuetan huts egiten edo bekatu egiten duela eta gauza betegingabeak ekoizten dituela, hori lehen Zatiko Eranskinean tratatu ditudan asmakerien zerrendan sartzen dut. Piarres Xarriton

"Irudi" eta "hizkuntza" hitzek pentsatzera ematen dutena baino sotilagoa eta meheagoa da arazoa, zeren denak ados baitaude ez direla irudiak, hitz horri **arrunki** ematen zaion fenomeno zentzuan. Josu Zabaleta

Arazo kulturalak, nolabait; azken batean **arrunki** txip aldaketaz ezagutzen den horrekin zerikusia dutenak. Iñaki Heras

Baina, hain zuzen pragmatikari buruz beste ezeri buruz baino are zalantza gehiago dudan arren, ene ustezko hiru eginbide **arrunki** apuntatzera mugatuko naiz ni. Joxe Azurmendi

Hegatxabala, **arrunki** "larretxori txanoduna" deitua, beste txori guztien gainetik maite zuen. Askoren artean

Lagun gazteenak limurtzea palestra heleniko batean gorputzak lotsagabeki erakutsi eta buruak **arrunki** ezkuta zitzaten petasus helenikoaren hegal zabalaren azpian. Iñaki Mendiguren

---

arrunt *(ETCn **46.417** agerraldi)* **1** *izond* inolako berezitasunik ez duena, ohikoa; nolakotasun apalekoa; gaitzesgarria.

-Ikusi berri duzuena ez da jainkozko mirakulua, edonork egin dezakeen gauza **arrunta** baino. Jon Arretxe

Lerro horiek irakurtzean iduritu zait bi ikuspegi **arrunt** kontrajarri badirela gure kasuan eta, biak berdin kaltegarriak baitzaizkit, nahi nituzke bi hitzez argitu: Piarres Xarriton

Jende **arruntarentzat** zintzo eta zuhur esan nahi du. Xabier Olarra

Gainerako soinu **arruntekiko** ezberdina zirudien soinu batek atezuan jarri zituen biak. Harkaitz Cano

Azken batean, erran nuen neure kolkorako, hura etxe **arrunt** bateko soto arrunta zen, ez nire irudimen asaldatuak marraztu zuen labirinto arriskuz josia. Alberto Ladron Arana

Emakumezkoak etxekoandre **arrunt** baten itxura zeukan. Jasone Osoro

Liburuekilako adiskidantzak bete dizkit bazterrak, altzari **arruntetan** jarri ditut idazki maiteak. Piarres Aintziart

"Ribaforadako Udalak, 1997ko urtarrilaren 20an egin osoko bilkura **arruntean**, ondotik ematen diren ordainarazpenak onetsi zituen erregelamenduzko quoruma zuela". Aingeru Epaltza

Horregatik ez zenuen desiratzen izadi-mundu hartako beste izaki txiki eta **arrunt** bat izatea baizik. Hasier Etxeberria

Gizona txakurrak irudikatzen zuen, ez merkatari batek, ez opera ikusle batek, txakur batek baizik, txakur **arrunt** batek, handi nahiz txiki, beltz nahiz zuri. Imanol Zurutuza

Oinarri horiek egunerokoak ditugu aldiotan ere eta edozein legelarirentzat ezinbestekoak, lege jorraketa **arruntean** nahiz goi mailako ikerketan. Andres Urrutia

Besteak amonaren etxean geratuko dituk lotan - erantzun zidan, hiru haurrek etxetik kanpora gaua pasatzea gauzarik **arruntena** balitz bezala. Hasier Etxeberria

Walkman **arrunt** baten tankerako zerbait, eta zenbait gailutxo txiki. Fernando Morillo

Hegaldi **arrunt** bat, aurretik egindako zientoa bezalakoxea. Joxe Austin Arrieta

Hilabete luzez egon zitekeen kale **arrunt** batengatik interesaturik. Eskarne Mujika

Gaixotasun baten moduan etorri da, ez ordea ziurtasun **arrunt** baten gisa, ez ebidentzia baten gisa. Monika Etxebarria

Nire **arruntago** bat jantzi zuen. Inazio Mujika Iraola

Lehertu egiten nintzen nire gurasoek eraikin **arrunt** harro horien aurrean esaten zituztenekin. Jon Maia

-Ez duk abizen **arrunta**. Jon Maia

Kementsuarena egin beharra nuen: ondo nago, benetan, ez nago obsesionatuta, askotan gertatzen dira horrelakoak, niri tokatu zait, bale, ez du aparteko garrantzirik, istripu **arrunt** baten moduan hartu behar duzue nik hilketa ikusi izana, orain ez zaitezte pasa... Anjel Lertxundi

Ez dut atzera bueltarik; errua nirea da, edozein gorabehera **arruntaz** hitz egiten hasi beharrean, liburua seinalatzeagatik. Anjel Lertxundi

Etxe **arrunt** batean bizi ziren, ordea. Pello Lizarralde

Gizaki **arruntok** biharamuna esaten diogu sentipenen batura honi, edo ajea, edo erresaka, edo bestondoa, edo zakurzuria, edo astelehena, asteazkena eta zergatik ez:

ostirala. Unai Iturriaga

-Menditarren artean zure ederraren lorea zimeldu behar bada, berdin zimelduko da senartzat zaldun **arrunt** bat edo errege bera hartuta - erantzun zion ordura arte Nuñorena egiten ari zen Antsok. Martin Anso

Haatik, ateraldi xelebrearen nondik norakoa ulertzeko, Q-boat edo Q-ontzi zeri-eta Lehenengo Mundu Gerran militar zereginetarako erabiltzen ziren itsasontzi **arruntei** esaten zitzaiela argitu behar da. Edorta Jimenez

Ez ote daukat osabaren bat basakeriara itzulia Suez-etik ekialderantz, kortxozko kaskoa buruan, jodhpur-ak oinetan eta mingostasuna ezpainetan, zuhaitz genealogikoetako fruitu ustela izaten diren pertsonaia **arrunt** horietarik: adaxka gazte, poeta apostata, ohorez, susmoz eta oroimenez beteriko desohoratuak...? Xabier Mendiguren Elizegi

Afari **arrunta** egin genuen. Txillardegi

Indusketa **arrunt** bat". Iban Zaldua

Edozein modutan, sekula karikaturaren gehiegikerian erori gabe halako estilizazio markatu bat nabari da, laburrean kontzentraturiko gertakari ez-**arrunten** pilaketak eragina, besteak beste. Juan Garzia

Marrazki eta argazki nahasketa batez eginak dira diapositibak, gizaki **arrunt**, anonimo eta batez besteko baten gorabeherak kontatzen dituztenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Aterkiaren ardatzera hurbilduko naun edonola ere, eta orduan ukabilak neskaren izterraren higidura hartu du mahonezko galtzaren eta oihal **arrunteko** gona eta azpigonaren gaindi, bostekoa estutzerakoan hartu dinadana baino taupada beroagoan. Koldo Izagirre

Auto **arrunt** batekin, galdu egiten duzu lan astunaren osagaia, eta esperientziaren osotasunerako ezinbestekoa da osagai hori. Oskar Arana

Hitz-lau **arruntetik** neurtitz berezirainoko gradu guztiak aurki baitaitezke obran, ñabartasun hori ere nolabait gordetzen ahalegindu gara. Juan Garzia

Baina intelektual edo adituen lanbidea ezingo zen estimatu, herriko jende **arrunta** jakin-gose egon izan ez balitz, eta ikasteko premia bizia sumatu izan ez balu. Askoren artean

Aitzitik, zakur **arruntari** burua libre izatea atsegin zaio, belarriak txut-txutik erne eduki eta inguruetan zer jazotzen Gotzon Garate

Hamabost bat minutuko ibildibea zegoen oinez Gaizkaren etxeraino, eta bidean mintzagai **arruntak** jorratu zituzten, buruan bestelako ideiak izan arren. Jon Arretxe

Eszena oso **arrunta** izan zen, hutsala. Iban Zaldua

Ikaragarri zaila da, ordea, mundu honetan hain ugariak diren gizaki **arrunt** horien potreta pintatzea: itxuraz oso antzekoak dira denak, eta adi-adi begiraturik soilik atzemango dizkiezu berez sumatzerik ez dagoen berezitasun ugari. Jose Morales

Arrunt arrunta da gure bizitza **arrunta**: betiko gauzak betiko moduan egiten ematen ditugu egunak. Joxerra Garzia

Abentura hauetako heroia gu soldaduskan bezala mintzatzen da, ahalik modu **arruntenean**. Pello Lizarralde

2 (predikatu eta adizlagun gisa)

Ordea, autore honen obra, Marxenarekin gertatu den bezala -eta baita Keynes berarenarekin ere, beste maila batean izan arren-, oso **arrunt** bilakatu da, eta ñabardurak galdu ditu. Iñaki Heras

Badaude urruti-mina ekarri edo haurtzaroa gogoratzen digutenak eta seguru asko egongo dira hilketa gertakari ezdeus eta **arrunt** bihurtzen duten lekuak ere, baina gu bizi ginen herriak ez zuen horrelakorik. Joxean Agirre

Durani hain **arrunt** egiten zitzaion gerra eta hain zitzaion erraza hura ikastea eta ulertzea, xakerako jaio den umeari xakean egitea zaion bezain erraza". Edorta Jimenez

• **3** *adlag* oso, guztiz, zeharo.

Chirac-ekin **arrunt** ados Irakiari etzaiola gehiagoko arrazoinik gabe gerlarik egin behar. Herria

Auzia **arrunt** samindu da, hiruetan-hogoi bat mariñelek bahitu dutelarik“ Pascal-Paoli” untzia, etxe horren handienetarik batto. Herria

Eta orain **arrunt** bestelako bizi bati jarri behar gara. Marzel Etxehandi

Ez al da hau guztia **arrunt** magikoa (badakizu, bide batez, "-gi-" hori "gizarte" hitzekoa bezala ahoskatu behar duzula)? Pello Salaburu

Zutabeen izenburuak **arrunt** diferenteak dira, eta gaiak, printzipioz behintzat, ildo ezberdinetatik abiatzen dira. Iban Zaldua

Batzuetan **arrunt** zozotua dagoela irudi du. Pello Lizarralde

Bertan, kremaz, margoz eta hamaikatxo edertasun flaskoz **arrunt** betea zegoen apal bateko hortzetako eskuila bati heldu, alboko pasta zabaldu eta ahoan sartu zuen zuzenean. Josetxo Azkona

Hala, gauzak **arrunt** aldatu zaizkigu urte gutxian. Iñigo Aranbarri

Nolanahi ere, adoleszentearen antzeko begitandu zait Perurena halakoetan gehienetan ("inozente" esaten du berak bere buruaz), ñabarduraren etsai eta **arrunt** manikeo bere sentimentu txuribeltzetan. Patziku Perurena

Lurrean ukitu eta neurtu zitekeenarekin **arrunt** etsita, Ingalaterrako jakintsuen jakituriaz desengainatuta, erlijioak eta politikak eskain zezaketenarekin nazkatuta, Lurrean ukitu eta neurtu ezin denaren bila abiatu zen, aingeruen hizkuntza entzun, ulertu, aditu eta deszifratzera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Halaber erreparatu behar da, pozaldigaraian erraz eta arin den bezala ordubete osoa kontenplatzen egotea, hala **arrunt** zaila dela lehorraldian betetzea. Patxi Altuna

Gogait da, **arrunt**. Jose Angel Irigaray

-Maitagarri **arrunt** samarra da - azaldu zuen Peterrek, barkamena eskatuz bezala -. Julen Gabiria

8 Atole: arto egosia uretan nahiz esnetan urtuz egindako edari bat, **arrunt** erabilia. Juan Garzia

Gerrian pistola handia ageri zuela, sonbrerua belarrietaraino, bibote gorriko polizia **arrunt** lodi batek eskuarekin aurrera keinua egiten zuen. Iñaki Zabaleta

Arrunt liluraturik zeudelarik mutikoak, edari bitxi bezain goxo bat eskaintzen zien eta lekuan berean gelditzen ziren zanpez lo. Aurelia Arkotxa

4 ***argi arrunt***

Gero, lehenbiziko irudia filtro gorri batetik proiektatzen zen, eta bigarrena, berriz, **argi arruntez**, filtrorik gabe. Xabier Olarra

Ba ote zitekeen (nire lagun Kevin Halliganek iradokitzen zuenez) begi-lausoak kentzean -hamarkadatan hain erretina ahulak apika babestu zizkioten begi-lauso haiek kentzean- hilgarri gertatzea Virgilentzat eguneko **argi arrunta**; erretinak erabat erretzea, alegia? Esan ohi da erretinako beste arazo batzuk dituztenei -makularen endekapena adibidez-, izugarri jasanezina zaiela argia -ultramorea ez ezik, uhin-luzera guztietako argia-, eta balitekeela argiak erretinen endekapena azkartzea. Xabier Olarra

5 ***demanda arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Judizio arruntean, ordea, **demanda arrunta** edo betea da, auzia erabat aurkezten delako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Legeak ez du eskaria arrazoitzea edo idatziz aurkeztea eskatzen, ezta **demanda arrunterako** ezarritako formalitaterik ere; legeak eskaria inprimaki edo formulario bidez aurkezteko aukera dagoela besterik ez du esaten. ETC-zientzia, zuzenbidea

Deskribatutako demanda, **demanda arrunta** da, baita osoa deitua. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***ekuazio diferentzial arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn **69** agerraldi)*

1695ean Jakob Bernoullik Bernoulliren ekuazio diferentziala proposatu zuen, y' P (x) y=Q (x) y^n formako **ekuazio diferentzial arrunta**. ETC-entziklopedia

Hori eginda, 9.89 ekuazio diferentzialak beste hiru **ekuazio diferentzial arrunt** eman ditzake. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hori lehen mailako **ekuazio diferentzial arrunt** bat da, koefiziente konstanteak dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kasu horretan, funtzio inplizituen teorema erabiliz, (10.111) sistema laburtu egin daiteke **ekuazio diferentzial arruntez** osatutako ekuazio-sistema ez-lineal gisa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hau egin ostean, **Ekuazio Diferentzial Arrunten** (EDA) sistema lortzen da, ohiko zenbakizko metodoak erabiliz ebatz daitekeena (hau da, denboraren diskretizazioa). ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrela, liburuak hiru atal nagusi izango ditu: aldagai anitzeko funtzioen azterketa; integragarritasuna, aldagai batekin eta anitzekin; eta **ekuazio diferentzial arruntak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ekuazio diferentzial arrunt bat, EDA (edo **ekuazio diferentzial arrunten** sistema bat), da aldagai bakarraren menpe dagoen funtzio bat (edota aldagai bakarraren menpe dauden funtzioak) emaitzatzat duen (dituen) eta deribatu arruntak agertzen diren ekuazioa (edo ekuazio-sistema). ETC-zientzia, zuzenbidea

7 ***esneki arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Kontuan izan behar dugu arrautzak duen proteina gure gorputzerako osoenetakoa eta aberatsenetakoa dela baina hori hartu ezin dutenek beste iturri batzuk erabili beharko dituztela proteina maila horretara iristeko: haragiak, arrainak, kontsumitu daitezkeen **esneki arruntak** (esnea, jogurta, gazta batzuk...), lekaleak arrozarekin prestatuak... ETC-prentsa

"Lactarius quietus" (**esneki arrunta**). ETC-entziklopedia

8 *gatz arrunt*

Karol Schultzi, ordea, berrogeita hamar zigorrada eman zizkioten eta gero, zauriak su gori, zauriak gorri, zauriak odolbide, zauriak min-huts, zauriak leize sakon zirelarik, gatzez, **gatz arruntez**, gatz usainik gabekoz, gatz itsasorik gabekoz, estali zituzten denak. Felipe Juaristi

Eztainuaren, Jupiterren metalaren atsegintasun eskuzabaletik deusek ere ez dirau beraren kloruroan (bestetik, kloruroak oro har jendaila dira, gehienean azpiproduktu doilor, higroskopiko eta ezer gutxitarako onak: **gatz arrunta** izaki salbuespen bakarra, oso bestelako kontua baita horrena). Juan Garzia

9 *izen arrunt*

Gainerako izenei doakienez, hala nola -Dayy-n 'Epailea',S -addîq 'Zuzena',H -annûn 'Errukiorra',Rah -ûm 'Bihozbera',-'El-hîm 'Jainkoa', garbi dago horiek guztiok **izen arruntak** eta eratorriak direla. Xabier Kintana

Pertsona izenek eta leku izenek ahalbideratzen dute hemen homonimia, izen bereziei **izen arrunten** ezaugarriak egotzita. Iñaki Arranz

Bena izen propi eta berezia da "Baigorriko Balea", bego bere leküan, ez dügü "bale" horren beharrik **izen arrunt** bezala, eta berezki ez dago Züberoako balerik, haboroziz eta bananarik Groenlanden. Herria

Errealistagoak jartzea erabaki genuen orduan eta nola guk ogia banatu nahi dugun posta bidez, ogia.com deitzea erabaki genuen, adjektibotik **izen arruntenera** igaroz eta estrategikoki esplizitoegia izan litekeen bidera derrigortuz geure buruak. Hasier Etxeberria

Jack izenaren aldaera eskoziarra; Eskoziako gizasemeei ematen zaien **izen arrunta**, guardiako soldadu direnei, bereziki. Mirentxu Larrañaga

Euskaraz, ordea, zail gertatzen da horren pareko banaketa terminologikoa egitea, **izen arruntena** (hiztegi estandarrean onartua) txistukari delako. Lourdes Oñederra

10 *latin arrunt*

Frantsesa eta Probentzala, esaterako, biak **latin arruntetik** sortuak dira, **latin arruntak** Galiako iparraldean eta hegoaldean izan zituen bilakaera desberdinen ondorioz. Isabel Arrigain

Kultura klasikoak gure literatura labur apalean izandako oihartzun ia guztia **latin arruntetik** eta gai aszetikoetatik zetorren, baina ez latin klasikotik edo literatur iturri zuzenetatik. Anjel Lertxundi

Latinaren iturburutik edanda, gaurko gaztelaniak bikote ezaguna ageri du: aldaera bata (madera) **latin arruntaren** bilakaeraz sortua eta bestea (materia), aldiz, filosofia liburuetako kultismo aldatugabe modura heldua. Xabier Kintana

11 *lege arrunt*

Badakik **lege arrunta** dela: bizi den oro duk hilkor, mundutik dezan noizbait naturak eternitatera igor. Juan Garzia

Halaxe da bai, andrea, guztion **lege arrunta**. Juan Garzia

Napoleonek frantziar legearen kodetze egin berria sartu zuen bere inperioko italiar, flandriar, alemaniar eta poloniar lurraldeetan, eta Indiako britainiar gobernuak Ingalaterrako **Lege Arrunta** sartu zuen. Iñaki Mendiguren

Andresek ongi frogatua zuen, Alcolean bezala Madrilen ere, zenbat eta gorago igotzen den bat, orduan eta baliabide gehiago duela **lege arruntei** itzuri egiteko. Josu Zabaleta

Lege arruntari zion begiramenak eta errespetuak ez du haren kasua desobedientzia kasutzat hartzen uzten. Askoren artean

Hori, Auzitegi Nazionalean sistematikoki urratzen da, hainbat eta hainbat **lege arrunt** urratzen diren bezala. Berria - Euskal Herria

12 *letra arrunt* *(corpusean ez dago; ETCn **43** agerraldi)*

"O" letra larria nahiz xehea ezin nituen saihestu, eta horrek zailtasunak sortu zizkidan; azkenean, burualdean goranzko marratxo bat zeukan **letra arrunt** bat aukeratu nuen. ETC-literatura, saiakera

Aldrebeski eta **letra arrunten** arabera ordenarik gabe antolatutako zenbait liburu alderantzikaturen isla optikoa, beren izenburu distiratsuekin pareko bi apaletan baitzeuden. ETC-literatura, saiakera

Bi ahotsak tipografikoki bereizten dira, **letra arruntean** narratzailearena, italikoan protagonistarena. ETC-prentsa

Letra etzanaz: jatorrizko naziokotasuna eskuratzen da **Letra arruntaz**: jatorrizkoa ez den naziokotasuna eskuratzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bektoreen magnitudeak **letra arruntez** idatziko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Irudian, **letra arruntek** bitarteko inaktiboak adierazten dituzte, eta letra lodiek konposatu aktiboak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oinarri gisa, arau orokor bat dago, unitate-sinbolo guztiekin aplikatzen dena: nazioarteko SI sisteman unitate-sinbolo guztiak **letra arruntez** (letrakera bertikala) idazten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Laburdurak **letra arruntez** idazten dira. Oso laburdura gutxi erabili behar da idazki arruntetan, helbideetan izan ezik. ETC-entziklopedia

Filogenia honetan letra etzanez desagertutako kladoak agertzen dira eta **letra arruntez** gaur egun bizirik daudenak. ETC-entziklopedia

13 *logaritmo arrunt* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Batezbesteko geometrikoarekin eta desbideratze estandar geometrikoarekin lan egiteko, laginen **logaritmo arrunta** har dezakegu; gero, batezbesteko estandarra eta desbideratze estandarra kalkulatu; eta, azkenik, emaitzak berretu hasierako aldaketa (logaritmoak) desegiteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Serie harmonikoaren eta **logaritmo arrunt** edo logaritmo naturalaren arteko aldearen limite gisa definitzen da. ETC-entziklopedia

14 *urte arrunt* *(corpusean ez dago; ETCn **75** agerraldi)*

Urte arrunta 365 egunez osatuta dagoen urtea da, eta beraz, bisurtea ez dena. ETC-entziklopedia

Lehen munduko herrietan ere berrogei internet-urtez (hamar **urte arrunt** alegia) itxaron beharko dugun arren, apurka-apurka irrati-telebista digitalaren interaktibitatea errealitate bihurtuz joango da, kartara egindako hedabide modura kontsideratu arte, hau da, programen autoerrealizazioa gauzatu arte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Heraklitoren patuaren teoriak badu zerikusirik, dirudienez, 18.000 edo 30.000 **urte arrunteko** "Urte Handiarekin" edo "Ziklo Handiarekin". ETC-literatura, saiakera

Baina, zangek ez badute modurik urte jakin bat oparoa izango den aurrez jakiteko, ezin dugu espero emeek baliabideak bi arrautza errunez xahutuko dituztenik, ugaltze-arrakastari kalte egiten baitio horrek **urte arrunt** batean. ETC-literatura, saiakera

Hor bozkarioa eta maitasun-sentipenak erabatekoak dira, eta halako egun batek gehiago balio du mila **urte arruntek** baino, bertan sorberriko egoeran bezala, orainaren bizipena denboraz kanpokoa bilakatzen baita. ETC-literatura, saiakera

Pixkana-pixkana onartu zuen egutegi berria, Paradisuaren zenbaketa bisurtea: askatasunaren deserrian, lau **urte arrunt** balio zituen urte bakoitzak. ETC-literatura, saiakera

15 *zenbaki arrunt*

Sinboloetan, Adibidez, D **zenbaki arrunten** multzoa bada, sinboloaren interpretazioa **zenbaki arrunten** funtzio bitar bat izango da, esaterako, batuketa edo biderkaketaren tankerakoa. Askoren artean

Adibidez, interpretazio-eremua **zenbaki arruntena** bada, sinboloaren interpretazioa **zenbaki arrunten** arteko erlazio bitar bat izango da, esaterako, "txikiago izan". Askoren artean

16 *zentzu arrunt* ik **zentzu komun**.

Egungo ohiko **zentzu arruntean**, giza sexualitatea sexuari dagozkion ezaugarri fisiologiko, psikologiko edo kulturalaren multzoa litzateke. Berria - Harian

Argumentu hau egitatean transzendentala den arren, bera beharbadakoa denaren barneko onartezintasunean funtsatzen den heinean, dena dela, hain sinplea eta berezkoa da, non gizakien **zentzu arruntenarentzat** aproposa gertatzen baita hau bertara gidatu ahala. Ibon Uribarri

Bazookarena guztiz itxuragabea da, osoro neurriz kanpokoa, baina halaxe aipatu ziren gauzak bolbora irazekiaren abaila ezin itzalizkoan; nik ez dut uste, gezurra dela deritzot, **zentzu arruntak** ez dit beste biderik eskaintzen. Karlos Linazasoro

Gauza biak bi genero ezberdinekoak baldin badira, argi dago, **zentzu arrunterako** ere, ezin izan daitekeela elkarren artean harremanik, biak "gorakoko genero" batera eraman arren. Xabier Kintana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

arrunt alde (7); **arrunt arrunta** (8); **arrunt asaldatua** (8); **arrunt berezia** (7); **arrunt beste itxura** (8); **arrunt bilakatu** (7); **arrunt desberdinak** (9); **arrunt ezberdinak** (10); **arrunt galdua** (8); **arrunt hasarre** (8); **arrunt kanbiatu** (7); **arrunt kontra** (10); **arrunt samarra** (8); **batzu arrunt** (17); **bera arrunt** (11); **egoera arrunt** (9); **egun arrunt** (7); **gaizkile arrunt** (7); **gauza arrunt** (12); **gizaki arrunt** (7); **hitz arrunt** (9); **jende arrunt** (8); **preso arrunt** (14)

arrunt arrunta (8); **arrunta baino** (14); **arrunta iruditu** (7); **arrunta izan** (32); **batere arrunta** (7); **bizitza arrunta** (14); **erabat arrunta** (9); **gauza arrunta** (25); **gizon arrunta** (14); **gripe arrunta** (7); **guztiz arrunta** (7); **izen arrunta** (11); **jende arrunta** (29); **nahiko arrunta** (9); **oso arrunta** (35); **oso arrunta da** (7)

arruntagoa da (7)

euskaldun arruntak (7); **gauza arruntak** (9); **herritar arruntak** (7); **jende arruntak** (39); **langile arruntak** (8); **oso arruntak** (12); **oso arruntak dira** (7); **pertsona arruntak** (9); **preso arruntak** (7)

gizon arruntaren (8); **hizkuntza arruntaren** (8); **jende arruntaren** (19)

hizkera arruntean (20); **jardun arruntean** (7)

arrunten artean (9); **jende arrunten** (10); **zenbaki arrunten** (7)

gauzarik arruntena (10)

lan arruntik egingo (13); **ohiko lan arruntik** (13)

---

arruntasun *iz* arrunta denaren, inolako berezitasunik ez duenaren nolakotasuna.

Arruntasuna eta barbarotasuna maneretan. Iñaki Mendiguren

Gutxiengo menderatzaileak "proletarizaziorako" joera azaltzen du, barne-proletalgoaren **arruntasunak** eta kanpo-proletalgoaren barbarotasunak hartzen ditu, desegintzaren azken etapan, bere bizimodua beste haienarenetik bereiztezin bihurtu arte. Iñaki Mendiguren

Bere antzinatasun, komuntasun eta **arruntasunaren** marka garbia. Iñaki Segurola

Gaiztotasunaren **arruntasun** itogarriaz mintzatu zen Bernanos; emakume komun-garbitzaileak, bere aldetik, etsipenaren **arruntasun** itogarria ezagutzen du, beti bat desberdintasun nazkagarrien atzetik. Joxan Elosegi

---

arruntean *adlag* normalean, jeneralean.

Santiagorako bidean, bizi ordenatuan eta **arruntean** gauzak oro haxean nahi dituena, etxen egon dadila. Piarres Aintziart

Floriditan edanean eta istorioak kontatuz edo bestela Pilar honezkero **arruntean** itsasoan, hor ere polito edaten, baina urpekontziren bat antzemateko aukerari agur esanda. Edorta Jimenez

Arruntean jakiten nuen zer komeni zitzaidan, eta nahiago izaten nuen aitatxiri ez kontra egin. Aingeru Epaltza

Lehendik ere, haurdun nintzenekoan gizonarenganako gogoa itzalia banindabilen, **arruntean**, erditu eta gero harekilakoan gero eta arroztuagoa. Jose Angel Irigaray

Horregatik edo, haizea, arima gaiztoko sorkaritzat joa izan da **arruntean**. Patziku Perurena

---

arruntkeria ik **arrunkeria**.

---

arruntki ik **arrunki**.

---

arruntu, arrun(tu), arruntzen **1** da/du *ad* arrunt bihurtu.

Ez da nabarmenduko, beraz, Espainiako Erregina Errejentaren bularra Donostiako Santa Maria elizako tribunako antepetxo gorrian, baina halanbe abaniko astinduek eragiten duten harrabotsa dateke funtzio eder hau **arruntu** egiten duen gauza bakarra. Koldo Izagirre

Filmegintzan berean, azken aldi honetan egin diren lanak ez dira horren interesgarriak; fotogenia lausotu, **arruntu** egin da gehienbat, formula estereotipatuetan finkaturik. Josu Zabaleta

Dekoratua, berriz, germaniar kutsua lortu nahi zuen hortik horrako jator ukitu batez **arruntua**. Anjel Lertxundi

2 (era burutua izenondo gisa)

Halatsu arestiko krisi eta dekadentzia diskurtso nahinon **arruntuan** ere, V. Pareto eta G. Mosca-k, R. Michels-ek, nolabait Max Weber-ek berak, bere "buruzagi karismatikoarekin", gizartearen biltzeko eta artikulatzeko eliteen noraezeko rola erremarkatzen zuten. Joxe Azurmendi

---

arruntze *iz* arrunt bihurtzea.

Telebistak heriotzaren **arruntze** erabatekoa ekartzen digu egunero etxera. Anjel Lertxundi

---

arruta *iz* bidea.

Aurelia Arkotxak badaki zein **arruta** har. Aurelia Arkotxa

---

ars antiqua *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi) iz* Europan Erdi Aroaren amaiera aldera konposatutako musika.

Ars antiqua, baita Ars veterum edo Ars vetus deitua, Europan Erdi Aroaren amaieralderan konposatutako musika da, gutxi gorabehera, 1170-1310 artekoa ETC-entziklopedia

---

arsenal *iz* armategia.

Pilda bulta hau **arsenala** zen. Koldo Izagirre

Hau esanik, gure gizonaren kutxa ireki zuen mahaiaren gainean, eta ondoren dendaren atzeko aldean desagertu zen, errekaitu **arsenal** batez horniturik agertzeko berriz: kutxa, liburu, lupa, palmer itxurako metalezko tresna txiki bat... Jon Alonso

---

art ingelesezko hitza, zenbait izendapenen parte dena.

2 ***art brut***

Baina bataren eta bestearen estiloa neurri batean behintzat "haur"-estilo bezala definitzen bada ere, horretaz gainera baditudzte zeinek beren erreferentziak: Bauhaus eta **art brut**, hain zuzen. Josu Zabaleta

3 *art déco*

Udan, aldiz, itsas hegian den betoizko '**art deco**' eraikuntza haundiko La Pergola dantzalekuan. Ramuntxo Etxeberri

4 *art nouveau*

-Onartzen dut jende honek XIX.eko traste zahar dezente bota zuela leihotik kanpora, eta sinbolismoari edo **art nouveau**-ari zabaldu zizkiotela ateak. Ramon Saizarbitoria

Kanpoko ornamentazioan, hala ere, bazituen **Art Nouveau**-ren motibo batzuk, egiturari sotiltasun eta arintasun airea ematen ziotenak. Patxi Iturritegi

5 *art rock* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Art rocka rock and roll musikaren azpigenero bat da. Bere ezaugarri nagusiak letra gai handigurak, eta doinu, harmonia eta erritmoen esperimentazioa izatean datza, maiz poparen mugak igaro eta jazza, musika klasikoa eta musika elektronikoaren alorretara ere zuzentzen da. ETC-entziklopedia

Kaiser Chiefs **art-rock** talde gisa aurkezten da, baina bere musikan 80ko hamarkadako pop britainiarraren arrastoak ere antzematen dira. ETC-prentsa

Art rock edo musika intelektualtzat ere jo izan dute bere musika. ETC-prentsa

Art-rock elektronikoa egiten duen Hidrogenesse bikotearen emanaldia ere izango da, eta propio gaurko sortutako Planetamikelurakenbitarteleta taldea ere bai. ETC-prentsa

6 *art toy* *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Diseinuzko jostailuak edo **art toys**-ak edizio mugatuan egiten diren bilduma egiteko jostailuak dira, hauek artista eta diseinatzaileek sortzen dituzte. ETC-entziklopedia

Art Toy Gama kolektiboa duela lau urte sortu zen, mugimendu hori sustatzeko xedez. ETC-prentsa

'Art toy' jostailuen unibertsoak Tolosa eta Donostia hartu ditu, proiektu bera osatzen duten lau erakusketarekin. ETC-prentsa

Lau urte daramatzagu **art toy** edo egile jostailuen kultura Euskal Herrian, Espainian eta Hego Amerikan zabaltzen. ETC-prentsa

7 *fan art* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Fan art edo fanart ingelesetik datorren hitza da, beste baten lanean oinarriturik sortzen diren artelanak adierazteko erabiltzen dena. Beste horrek sortu duen unibertsoko pertsonaiak, garaiak, janzkera edo beste edozer imitatzen du. ETC-entziklopedia

8 *minimal art* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Minimal arteko izenik ezagunenak hortxe daude: Judd (gogoz kontra bada ere), Andre, Flavin, Morris, Sol LeWitt... ETC-prentsa

Nire ezjakintasunean, **Minimal Art** izenekoa, Espresionismoaren bestalderako bidea izan zitekeela, pentsatu nuen. ETC-prentsa

Horretarako, goitik behera eta ezkerretik eskuinera mugitzen ziren bolumen mugikorrak erabili zituen, neoklasizismo eta **minimal artean** kulunkatzen zirenak. ETC-prentsa

9 *pop art*

Haren irudietan bi iturri aipatu ohi dira: **pop art** eta graffitia. Berria - Kultura

Modu berean, margolaritza-higikunde batzuek, **pop-art**-ak edo hiperrealismoak, adibidez, desberdin "ikusarazi" dizkigute eguneroko mundua eta mundu horretako objektuak. Josu Zabaleta

---

arta[1] 1 *iz* arreta, ardura.

Arropa eraman dut, lisatzen bukatzeko, **arta** horrek erakusten zuen aukera profitatu zuela ordua iritsi baino lehen irteteko. Jon Alonso

Aitatxik ere, bere aldetik, gero eta **arta** gehiago eskatzen zigun. Daniel Landart

Hemen Straussen ohartxo historiko bat izan liteke **arta** pixka baten merezigarria guretzat. Joxe Azurmendi

Eta mahatsondoek **arta** anitz galdatzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 (izenondoekin)

Unibertsitateak **arta** berezia behar du hurrengo urteetan, eta, horregatik, erakunde honen aldeko apustu garbi bat egin beharko luke gizarteak. Beste zer eginik ez zegoen, bet-betan beste sorta bat eskatzea baino, bidenabar arren gomendatuz W.ri **arta** bereziz egiazta zezan erretxinak ke-margo harekin zuen portaera. Horiek ere, ezinbestekoak, gizartea bera ahalbideratzen duten betebehar eta **arta** berezien ondorioak baitira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Erabilgarritasun handia, hala batetik bestera eramateko nola beso arterako; **arta** berezirik eskatzen ez duen tresna izatea; ikasteko eta jotzeko ere erraz samarra eta konpletoa nolabait, melodia eta laguntza batera jotzeko aukera ematen duenez. Koldo Izagirre

Nola sartu zen bagoian eta nola prestatu zen bidaia egiteko, zer aztoramen txikia sortu zuen bere inguruan, eta zer **arta** handia hartu zuen inor ez gogaitzeko eta bazterrak ez nahasteko. Karlos Zabala

Hala beraz, zure ustean niretzat higuingarriak ziratekeen ele guztiak **arta** handiz kenarazi dizkizun zure adeitasunari oharturik, [...]. Jon Muñoz

Ilea, mototsik gabea jadanik, idor zekarren hala ere, txanoa buruan edo **arta** handiz dutxatua zen seinale. Aingeru Epaltza

Eramaten ditugu beraz **arta** intentsiboko sailera, eta hantxe jarraitzen dute biek bi astez, ahaleginean, gero eta hobeto denean. Koro Navarro

Nire **arta** erneei esker, interesatzen zitzaidan guztia jakin dut: atzoko gauaz, atzoko gau zoriontsuaz geroztik, neure giroa berraurkitu dut. Jon Muñoz

Baina senitartekoak bagina bezala bizi ginen elkarren **arta** maitakorrean. Txillardegi

Ez irri egin, adiskide, oroitzapen honetaz hain **arta** gozoan egiten badut kontu. Koldo Izagirre

Zeren eta, anitz urtez, Nafarroako Errege-orde gisa, zaindu baikaituzu, gure garaiko beste nehork ez bezalako atxikimendu, zuhurtzia, gizontasun eta **arta** zintzoarekin. Piarres Xarriton

Adiskiderik amoltsuenaren **arta** kontsolagarriei zor diot; eta nire galde bakarra da utz diezaiozun adiskide horri zure adiskide ere izaten. Jon Muñoz

Deabruaren eta haren zerbitzarien **arta** jarraikiek haien indarra hedatuko dutela eta Erregea bera edo behaztoparazi edo heresian sarrarazi arte ez direla gelditukо. Piarres Xarriton

Iguriki nezake, jauna, **arta** hain premiazko eta hain baliosik ukatuko ez didala? Jon Muñoz

Ez da zurruna ez malgua, ezkoaren moduko bigun baizik; ez da distiratzailea, edo, hobeki esan, **arta** maniakoz kontserbatzen denean baino ez da, zeren bestela berehalaxe erreakzionatzen baitu airearekin, eta larruazal zakar itsusi batez estaltzen. Juan Garzia

Begiak zabaldu gabe libratu zuen estalkia zamarraren trabatik, bonbilla ipinia zuen **arta** bertsuarekin ixteko. Koldo Izagirre

Soinua ere **arta** berberaz zaintzen zuen. Koldo Izagirre

3 *arta eduki*

Archellesek, besteak ez bezala, bai forma eta bai musika zaintzeko **arta eduki** zuen. Jon Alonso

4 *arta hartu* arduratu.

Mariz eta haurraz **arta har** ezazu. Elena Touyarou

Aitaz ere **arta hartu** zuen; elkarrekin kontsolatzen ziren, ohean, bata bere maitalearen galtzeaz. Serioski, **arta hartuko** dut etendura horretaz. Elena Touyarou

Eta hori, neri, axola eskasa ez izaitea, bertzetaz **arta hartzea**, herri batetaz edo populu baten erdian, barnean lan egitea. Menane Oxandabaratz

Nahi nuke jauretxea eta etxalde osoa nire biloba Joantto, Bittor Ithurbideren eta Enrieta nire alabaren semearena izan daitezen, berak amonaz eta amaz **arta hartzeko** baldintzarekin. Elena Touyarou

Dolu du, hala dio, orain arte ez haurraz **arta** gehiago **harturik**. Janbattitt Dirassar

Berehalaxe **hartu** zuen haien **arta** mutil gazte, jaka zuriz eta galtza urdin ilunez jantzitako batek. Joxemari Iturralde

5 *arta-hartzaile* arta hartzen duena. ik **artatzaile**.

12.000 **arta-hartzale**. Herria

Memento huntan, 640 **arta-hartzale** badaude egunero. Herria

6 ***arta intensiboko sail*** arta intentsiboko gunea. ik **zainketa intentsiboko/intentsiboetako unitatea**.

Eramaten ditugu beraz arta **intentsiboko** sailera, eta hantxe jarraitzen dute biek bi astez, ahaleginean, gero eta hobeto denean. Koro Navarro

7 ***arta izan*** du *ad*

Bestlde, gomita bat luzatzen diete gure eskualdeko alderdi sindikat eta ingurumenaz **arta duten** erakunde publiko eta norbanako guzieri helduden larunbatean, abenduaren 7an elkartzeko bere Baionako egoitzan, Galuperie kaian 8a, goizeko 11 tan. Herria

Gau batez, bere obra gaiztoetara joateko jaikirik, **arta izan zuen**, haren aldarearen aurretik pasatzean, belaunikatu eta agur egiteko Andre Mariari. Juan Garzia

ONU-ko biltzarrean berriz hautatu dituztelarik gizonaren eskubideez **arta duen** batzordearen kidekoak, baztertu dituzte Estatu Batetakoak. Herria

Kolpatuak eta haien **arta duten** soldadu bakan batzuk han berean utzirik, nehoiz baino gutiago zarete. Xabier Montoia

Baina berek berentzat erabili ohi dituzten bitartekoen arabera asmatu dute Izadiaren zuzendari bat edo batzuk badirela, gizakiak iduriak, libre direnak, gizakien behar guztiez **arta dutenak** eta gauza guztiak haiek erabiltzeko egin dituztenak. Piarres Xarriton

---

arta[2] ik **arto**.

---

artabide *iz ipar* artatzeko, zaintzeko modua.

Haatik, hauen ezagutza sakontzeko eta **artabideak** moldatzeko, goi maileko teknologia baten bidez egin behar diren ikerlanak dira luze eta garestiak. Herria

Hemendik aintzina, agian lehen bai lehen **artabide** berri batzu aurkituko dira, arta-etxe berri batzu idekiko. Herria

---

artaburu **1** *iz* artoaren burua.

San Migel inguruan, urriaren atarian, badaki hegoak bisitatxoren bat egiten: estimatua izan ohi da gainera, baba eta **artaburu**, umotzen eta zoritzen joan daitezen. Pello Zabala

Urriak, hainbat baba-leka, hainbat **artaburu** beren txurikinez jantzita, mandio eta ganbara betetzeraino ekarri dituenean, hortxe dago beste emaitza estimagarria, morkots barruan heze gordeta. Pello Zabala

Gogoan daukat **artaburu** heldu ederrak dilindatzen ziren ene leihoa. Koldo Izagirre

Argiontzi baten argitan, gela bat ageri zen, sabaitik zintzilik **artaburuak** ikusten zirena, eta pinuzko mahai bat, bi gizon eserita zeudena. Koro Navarro

Supazterrean, **artaburuak** jaulkitzeko, babarrun lekak aletzeko, esaera zahar eta kontuzaharrak akordatu eta berritzeko... balio zezakeen egunak. Pello Zabala

Bostongo inprimategi bateko langile talde zabar bat beren pipa **artaburuz** eginak Letra Gorriminarekin iziotzen. Oskar Arana

2 (izenondoekin)

Oraindik aditzen dinat **artaburu** erreen usaina. Anton Garikano

Artaburu urre kolorekoak poza ematen digu uztaroan. Patziku Perurena

3 (irain gisa)

-Hi haz hi **artaburua**! Unai Iturriaga

Zein **artaburua** den! -xuxurlatu zuen Ronek pozarren, Crabbek pozik pastelak Goyleri seinalatu eta hartu egiten zituela ikusita. Iñaki Mendiguren

-Ez dit beldurrik ematen **artaburu** horrek -esaten zuen. Juan Kruz Igerabide

Gero doala ozpin bila aginduko dio **artaburu** hari maisuak, eta botila bete gorri etortzen da handik puska luzera. Koldo Izagirre

-Nob, **artaburu** alaena! -oihukatu zion-. Agustin Otsoa

-Ikusi duzue **artaburu** handi horren aurpegia? Iñaki Mendiguren

Koronelak bere hitz-aspertuarekin jarraitzen duelarik, aitak hari buruz zakarki botatzen zituen hitz lotsagabeak etorri zaizkit gogora -"kaikutzar azken putza", **"artaburu** ero alaena", eta are okerragoak-. Mirentxu Larrañaga

Alde zuek hemendik! -esan zuen aitak, eskopeta hiriko sei **artaburu** haien aldera apuntatuz. Koldo Biguri

Aitak esaten zuen haiek "babo **artaburuak"** eta "beltzak" zirela, eta haietako bakar batek ere ez zuela beragandik hartu mendirako grina, Gino kenduta. Fernando Rey

Irakurlea aise ohartuko da ezen Andrei Ivanovitx Tentetnikov Rusen hain ugariak diren eta, besteak beste, **artaburuak**, alferrontziak edo gibel-handiak esaten zaien gizon horietakoa zela. Jose Morales

Zer eta bere lehengusurik **artaburuenetako** bati lan eske bukatu ez zuen ba! Unai Iturriaga

Scott Operazio-zuzendariordeari, edo Washington-eko beste **artabururen** bati, xehetasun txiki bat pasatu baitzitzaion: gaztelania eta ingelesa ez ziren preseski neska haren hizkuntza bakarrak. Fernando Morillo

Musika ere halakoxea, cowboy trauskil eta **artaburuentzako** bazka: The Picketts, Long Ryders, Supersuckers, eta azken bolada honetan tex-mex gogaikarriena, Flaco Jimenez eta Tish Hinojosaren eskutik. Patxi Iturritegi

Musika jotzen dute bere lagun batzuek astero eta, nahiz eta musikariak nahiko txarrak izan eta entzuleek **artaburu** -koadrila bat osatu, edozein aitzakia da ona Julen berriro ikusi eta haren amodioa berreskuratzen ahalegintzeko. Jon Arretxe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artaburu ero** (3); **artaburu handi** (4)

---

artaburudun *izond* artaburua duena.

SAN JURGI ETA SAN MARKOS, ikusi dugu zenbat enpeinu eta zenbat lan ematen zuen erein aroak, artasoro mardula, arta-zuztar bi **artaburudunik** etorriko bazen bere garaian. Pello Zabala

---

artaburuxko *iz adkor* artaburu txikia.

Orduko arriskua, laborea dena ihartzen hastekoa, edo guztiz mantsotu eta indargetu eta ahultzekoa: eta noski, artaburu on bat nahiago, **artaburuxko** ergel bat baino. Pello Zabala

---

artadi *iz* artoz landaturiko eremua.

Sartu omen zen ba Don Kijote Toboso ondoko zuhaizti hartan, eta **artadi** edo baso hartan bere burua gorde zueneko, berehala hirira bihurtzeko agindu omen zion Santxori. Patxi Ezkiaga

Gaurko baserria (bi esne-behi, bi zekor, astoa, sei oilo, bi oilar, arbi-saila, hiru belaze, hektarea erdia **artadi**, ortu txikian berrogei tomate, hirurehun letxu, ehun leka-makila, perrexil txorta eta txerri txiki bat) iraupenekoa da, XVI. mendeko gorabeherei zegokiena. Edorta Agirre

Segurutik joko nuke nik hori, meta ostean edo pinudian edo **artadian** jarduna zela behin baino gehiagotan, gu ez bezala. Koldo Izagirre

Abram Mamre amortarraren **artadian** bizi zen, eta Mamreren anaia Exkol eta Anerrekin hitzarmena egina zuen. Elizen arteko biblia

Egun hartan, elgeak udalatu zituzten eta handik laster nork bere **artadia** hazten mirets zezakeen. Itxaro Borda

Antzerako ohiturak bazituzten Palestinan bertan ere, Hebrongo **artadian**-eta: garaitsu berean eta debeku bertsuekin, hala arropari eta sexualitateari buruzkoak nola imajinak garbitzekoak ere. Pello Zabala

Lantzakadaz zulatu zioten alderik alde bular aldea eta bihotza, eta gero **artadian** utzi zuten zakur bat bezala hilik, putre eta saien bazka. Felipe Juaristi

Naturarik ederrenaren erdian eta baratze ederrenaren erdian, aldakaraino iristen zaizkizun tomate sailen erdian, goldea urtean bitan pasatzen den **artadien** artean, beirarik, aterik, sabairik, biztanlerik gabeko etxe bat ikusten duzu ezustean. Koldo Izagirre

Ardiak eskapatuko zirena, ondoko **artadietan** desagertzeko? Itxaro Borda

Ikerkuntza arloari dagokionez, Aralarren, Arditurrin, Artikutzan, Aizkorrin, Orgin eta Gipuzkoa nahiz Nafarroako hainbat **artaditan** egin du lan sail honek azkenaldian. Berria - Kultura

---

artadun *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)* *izond* arretatsua.

Giroaren deskribapena, argi beroak, txoko ezkutuak argiantzaren pean, antigoaleko estiloko zerbitzari **artadunak**, bizizale itxurako gizon helduak, begirik kentzen ez dizutenak, solas erlaxatuen berbaroa eta Strangers in the night-en notak pianoan etc. ETC-literatura, saiakera

---

artaetxe *iz* gaixoak-eta artatzeko etxea.

Bertzalde Boncolac lantegian gizon batek minartu du eta hau **artaetxerat** ereman dute. Herria

Hunek kondatzen deie hango biziaren nekeziak: elurra, hotza, elektrika falta, **artaetxerik** ez eta eskoletan materiala eskasa. Herria

---

artagabe 1 *izond* artarik eza erakusten duena.

Haren ibilera **artagabea** zen, inora iristeko axolarik ez duen horietakoa. Anjel Lertxundi

2 (adizlagun gisa)

Haien atzetik, zabor biltzaileek zakarrak botatzen zituzten **artagabe** hogei pausotik hogei pausora gelditzen ziren iraulki orga batzuetara, zarata handia ateraz, baxerak hausten ariko balira bezala. Karlos Zabala

---

artagabekeria *iz* artarik eza, gaitzesgarritzat markatua.

Tomek, **artagabekeria** une batek arraroki erasota, Vermonterako gure bidaia hurbil-hurbilaren berri jaulki zuen bat-batean, denok mahaian eseri eta minutu gutxira. Oskar Arana

---

artagailu *iz ipar* artzatzeko gailua.

Erran behar da horien guzien ondorioz hiri hortan eritegi guziak zaurituz bete beteak direla eta **artagailuak** ere eskastuak hein hortako guduka izigarriekin. Herria

Eritasun berezieri buruz **artagailuen** ikerketak laguntzea gatik, urte oroz antolatua da gertakari hau. Herria

---

artagarau *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)* *iz* artalea.

Artagaraua biltzeko lekua . ETC-prentsa

---

artajorra *iz* artoa jorratzea.

Gerrikominaren aitzakiak uxatu beharko ziren **artajorra** abiatzean. Pello Zabala

Artazuriketa, gari edo **artajorra** eta beste horrelako gazteen lanetan zuen alaba edo neskatxak bakarrik ez fidatu. Anjel Lertxundi

Neska koskorretan kantatzen zioten txantxa baten airea nagusitu zaio: "...dantzan hobeto daki, **artajorran** baino". Anjel Lertxundi

Bide bazterreko soroan **artajorran** ari diren baserritar batzuek, eskuak aitzurretan bermatu, eta markesaren zalgurdiari segitu diote begiradaz aldirietatik hirirainoko galtzadan aurrera. Anjel Lertxundi

Pozez daude baserritarrak, beren arteko batek, dantzan **artajorran** baino hobeki zekien neska pinpirin hark, dantzaririk onena izatea lortu baitu. Anjel Lertxundi

---

artajorran *adlag* artoa jorratzen.

Bide bazterreko soroan **artajorran** ari diren baserritar batzuek, eskuak aitzurretan bermatu, eta markesaren zalgurdiari segitu diote begiradaz aldirietatik hirirainoko galtzadan aurrera. Anjel Lertxundi

---

artakozkor *iz* artoaren alea.

-Micaela horrek **artakozkorrak** ehoko zitian bertan. Juan Garzia

Halako dotoretasunik gabe ere, lastotan horrenbeste garatu gabe, alegia, apalxeago eta moxkote gelditu arren, galburutarako edo artaburutarako egoki askoak agertzen ziren gari lasto zumitzeko eta **artakozkor** sendokote haiek, artaburu parea alde banatara zutela. Pello Zabala

---

artalasto *iz* arto lastoa.

Orduan, mutilak, Gruaroko bidean zehar mahasti eta azkeneko **artalasto** artean banaturik zeuden herriko azkeneko etxeetara geroz eta abiada handiagoan iritsirik, ez baitzuten beren burua garaitutzat eman nahi. Josu Zabaleta

---

artalde 1 *iz* ardiz osaturiko taldea.

Baserriaren inguruko soro eta barruti, txaradi eta baso, azienda eta **artalde**, oiloetxe eta ukuilu. Pello Zabala

Haren ondasunak berebizikoak zituan: hamabi **artalde**; zerri eta ahuntzenak, beste hainbeste. Juan Kruz Igerabide

Tazito eta Zesarrengandik dakigunez, artzaintzan jarduten zuten batik bat; horregatik, barbaroen legeen kodeak **artalde** eta abere-taldeez ari dira ia guztiak. Iñaki

Iñurrieta

Unibertsitateko zelaietatik pasatzen den abelbidean **artalde** bat askatu zuen. Berria - Euskal Herria

Inguruan daukana ikusten du: **artalde** bat, inolako kezkarik gabe harri arteko belarra jaten ari diren berrogei edo berrogeita hamar ardi. Bernardo Atxaga

Larre-pentzeak zehar-argitan, sarale-metak eguzki-argitan gorri, eta **artalde** bat oihan-ertzeko sakonune harri-kozkortsu batean: zizare zuriak iduri! Joxe Austin Arrieta

Egoera horretan naizelarik, aski dut bide ertz bateko pentze aberatsetan **artalde** bat alhan ikustea, baketzeko. Itxaro Borda

Artalde baten marraka antzeman zuten. Itxaro Borda

Urruneko eliza baten kanpaiak entzun genituen eta **artalde** baten ezkila hots urrunagoak ondoren. Joxean Agirre

Nork bazkatzen du **artaldea** eta ardien esnetik edaten ez? Elizen arteko biblia

Artaldeen arduraduna Jaziz, hagartarren senitartekoa. Elizen arteko biblia

Artalde eta abere-taldeak ere eskuratu zituen. Elizen arteko biblia

Abramen bidelagun zen Lotek ere bazuen **artalde**, behi-talde eta oihal-etxola ugari. Elizen arteko biblia

Bidean zihoala, putzu bat begiztatu zuen landan eta hiru **artalde** putzu ondoan etzanak, handik edaten baitzuten artaldeek. Elizen arteko biblia

2 (izenondoekin)

Artalde eder baten jabe, artzain bezala ereman du bere biziko parterik haundiena. Herria

Agagi eta behi nahiz **artalderik** hoberenei eta, orobat, abere gizendu, bildots eta baliozko gauza guztiei, ordea, barkatu egin zieten Saulek eta beronen giza taldeak. Elizen arteko biblia

Zerbait gidatzen ari balitz bezala irakurtzen zuen, pentsatu zuen Camek, edo **artalde** handi bati aurrera zirikatzen ari balitz bezala. Anton Garikano

Eta ahaztu egin zitzaion agureari zera esatea: lehendik geneukana baino **artalde** handiagoa erosteko dirurik baldin badaukagu, erosi egin behar da **artalde** hori. Xabier Aranburu

Artalde berriak eremu epelagoetara eramanen baitituzte. Berria - Ekonomia

Agindu nien **artalde** ugaria ontziratu, eta itsasoratzeko. Juan Kruz Igerabide

Beste arrazetako esnea onartzen badugu, **artalde** txiki horiek pikutara joanen dira. Berria - Ekonomia

Gizasemeak, emakumeak, haurrak, zaharrak, animalien larruez jantzirik, aurpegia bikez igurtzitako maskuriekin estalirik, **artalde** argal batzuk zaintzen zituzten. Karlos Zabala

Nori utzi diok gure **artalde** koxkorra basamortuan? Elizen arteko biblia

Artalde sakabanatua Sionen bilduko. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan)

Mendietaz baliatzea beharrezko araudieri jarraikiz, mendia errespetatuz, hala nola xendrak eta **artalde** bidexkak, eta gain gainetik nekazarien betiko lanak. Herria

Ez da izango herri-agintarientzat babesik, ez **artalde**-gidarientzat ihesbiderik. Elizen arteko biblia

Erramuspe eta Laxage **artalde** jabeak, Indiano artzain euskalduna eta Cambron izeneko beste artzain bat hil zituzten indioek. Pello Salaburu

· Arazoa konpontzeko, beren mendeko berriak giza **artalde** eta abere-saldotzat hartu zituzten, eta nomaden artzain-txakurren giza ordezkoak sortu zituen administratzaile eta soldaduen esklabo-"etxe" baten forman. Iñaki Mendiguren

Latxa **artalde** gehienak galdu eginen dira honen ondorioz. Berria - Ekonomia

4 irud/hed

Jendeak eliza aldera egin du, **artalde** bat baino otzanago. Anjel Lertxundi

Vicente Manterola apaiz eta diputatua **"artalde** karlistari" hitz egiten. Berria - Kultura

Hazten joan zen neurrian, gero eta argiago ikusi ei zuen ardi beltza zela bera, **artalde** zurian. Herria **artalde** ergel bat da, batzuetan zozo pairatsua, bestetan anker asaldatua. Hasier Etxeberria

Gu zure morroi eta zure larreko **artalde** gara. Askoren artean

Zuek, nire **artalde**, nire zainpeko ardi zarete, eta ni zuen Jainko. Elizen arteko biblia

Artalde galdua zen nire herria, bere artzainek desbideratua. Elizen arteko biblia

Lehoiek erasotako **artalde** sakabanatua zen Israel. Elizen arteko biblia

Aurrerago, landetan zehar, aldian behinka, etsaiaren ehiza hegazkinek, behetik hegan eginez, metrailadorearen tiro sorta bat jaurtiko dute **artalde** negargarri honen kontra. Josu Zabaleta

Zugana gatoz lehenik, zeuri gomendatu zaizun **artalde** osoaren aita eta jaun baitzara. Askoren artean

-Lotsa zaitezte, ero **artalde** halakoa! Koldo Biguri

Kubako Gobernuak Habanan eginiko adierazpenetan gogor kritikatu zuen Guadalajarako goi bilerako azken agiriaren eztabaidan EBk izan zuen jarrera, eta "AEBen menpeko **artalde** gisa jokatzea" egotzi zion. Berria - Mundua

Pareko **artalde**-ideologiak ditugu, azken finean. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artalde bat (13); **artalde batekin** (5); **artalde baten** (5); **artalde eta abere** (3); **artalde eta behi** (6); **artalde guztiak** (3); **artalde handiak** (4)

aitaren artaldea (3); **artaldea zaintzen** (9); **artzainak artaldea bezala** (3); **bere artaldea** (9); **buruko artaldea** (4); **du artaldea** (3); **finantza artaldea** (4); **neure artaldea** (4); **nire artaldea** (4); **zen artaldea** (3); **zuen artaldea** (4)

artaldeak zaintzen (6); **bere artaldeak** (4)

otsoa artaldean (3)

artaldeen artetik (4)

artaldeko ardi (4)

ene artaldetxo hori (4)

---

artaldeka *adlag* artaldetan.

Gure ondoko itsasotik, edo barruko ordoki lehorretik, haize-bolada bakoitzak laino eta hodeiak, aleka edo sokaka, fronte eta frontexkatan **artaldeka** pilatuta, hortxe datoz Pello Zabala

---

artaldekeria *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi) iz* artalde izaera gaitzesgarria. ik **artalde 4**.

Artaldekeriaren babesle den kristau moralak menperatua, eta ondorioz, ez da ohiz kanpoko gizabanakoaren bultzatzaile. ETC-literatura, saiakera

Enpresa batean lan egitearen miseriaz dihardu liburuak, **artaldekeria** korporatiboaren kontrako alegatu bat da. ETC-prentsa

Batzuen mediokritate, besteen nahi eta ezin, gainerakoon **artaldekeria** eta estatuen indarraren ondorioz, Euskal Herria da galtzaile nagusia. ETC-prentsa

Neoliberalismoak gizabanako jakin batzuen eskubideak urratzea egozten die sarri komunismoari edo nazionalismoari, **artaldekerian** erortzea, baina bi ideologia horietako pertsona guztiak zaku berera sartzen dituenean horixe egiten du berak ere. ETC-prentsa

Gu gara, egia esateko, gure jainko gose eta **artaldekeriarekin**, tronuan jarri eta hantxe mantendu nahi dugunak. ETC-prentsa

Abertzaletasunaz gain, akritismoa, **artaldekeriarako** joera erretransmititu diote entzuleari. ETC-prentsa

Igualitarismo eta **artaldekeriaren** aurkaria. ETC-zientzia, zuzenbidea

artaldekide *iz* artalde bateko kidea.

Ez haatik **artaldekide**, baizik hontz edo otso bakarti, Tasmaniako otso zehazki. Markos Zapiain

---

artaldetxo *iz adkor* artalde xumea.

Herri honi buruz dio Jainkoaren Semeak berak Ebanjelioan: Ez izan beldur, ene **artaldetxo** hori, atsegin izan baitu zuen Aitak zuen alde errege izatea. Elizen arteko biblia

Nori utzi diok gure **artaldetxoa** basamortuan? Jose Antonio Mujika

Anaia txikien Ordena eta bizimoldea halako **artaldetxo** bat bezalakoa da. Josu Zabaleta

Ordurako ikusten zuen asko zirela otsoen antzera bere **artaldetxoari** erasotzen ziotenak, eta gaiztakerian zahartuak zeudenek anaien bizimoduaren berritasuna aski arrazoi zutela hari kalte egin nahi izateko. Askoren artean

---

artale *iz* artaburuko ale bakoitza.

Hizketan segitu zuen gizonak, orain hemengo kontuez eta gero hangoez, zerez asea ugari duen oiloa **artaletik artalera** ibili ohi den moduan. Anjel Lertxundi

Etxeko bihitegia zen, gariz, oloz eta zekalez betetzen zena, baita **artalez** ere. Joan Mari Irigoien

Artale xehetuak barreiatu zituen elurretan Hilariok. Pablo Sastre

---

artaleku *iz ipar* artatzeko, zaintzeko lekua.

Baimena ukan bezain laster, su hiltzaileak deitu ditu herriko mutilak eta Baionako **artaleku** baterat heldua izan da. Herria

Haur batek erredura arin batzu jasan behar izan ditu eta adineko emazte bat gertakariak durduzaturik Baionako **artalekurat** ereman dute. Herria

---

artalor *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* artasoroa.

Lurbide horretan jarraikiz, sarda batera helduko gara, eta eskuin alderat joko dugu, **artalorren** artean. ETC-prentsa

---

artalore *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* artoaren lorea.

Berandu antzera erein zuen jendeak suertea, uzta oparoa eta prezioa **artalorearen** gainetik. ETC-prentsa

Era berean, **artaloreari** kolore urdina ematen dion molekula-agregatu konplexua protonatzeak berebiziko garrantzia duten aldaketak eragiten ditu molekulan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Leku batzuetan Iparraldean gaskoieraren eraginez **artalore** arrari, ku ku la deritzoe (zubereraz tini). ETC-literatura, saiakera

Gari zuztar, olo zuztar eta **artalorearekin** haurrentzat egiten ziren, eta bestelako turuten modukoak dira, klarinete sinpleak. ETC-entziklopedia

Oloaren zuztarrekin eta **artalorearekin** ere egiten ziren halako hots-tresnak. ETC-entziklopedia

---

artamen *iz ipar* zaintza.

Hormak arrasatuz ibili naiz, kopeta makur, ahalke, adiskideak itxuraz atxikitzeko gisan, eritasun susmatuaren erruz **artamen** behar nuelako kideei urriki apurra beren bihotzetan sorrarazten! Itxaro Borda

Erabaki du beraz Herriko Etxeak karrika horrek merezi duela **artamen** egiazkoa. Herria

Hartu dute beraz xedea, lehen urte huntan berean 50.000 eri ezarriko dituztela **artamen** berezitan. Herria

Gosetearekin gaizki haziak diren 90 miliun haurrak, eta 640 miliun behar bezalako egoitza gabeak, eta 500 miliun **artamen** batezpadakorik gabeak, eta hiruzpalau ehun miliun eskolagabe eta ezin erran nun geldi errepika hau. Herria

Pentsatzen dute **artamen** etxe berezi bat egitea 2005 urtea barne. Herria

Hamabost egunetara doa ixtante ospitalean dela bihotz **artamen** zerbitzu berezian. Herria

Azkenean gaitzak ereman du bere etxeko, inguruko eta eritegietako **artamenen** artetik, Robert Duhalde, ostatuko nagusia eta zenbat zerbitzu mota bertzalde! Herria

Bere mintzaldian Jaun Auzapezak aipatu ditu burutu diren zenbeit egitate, nola: Ihalarreko Auzoteiaren berritzea eta etxe beharrezko baten eraikitzea, eskoleri **artamena** ekartzea, argi indar hariak lurperatzea. Herria

Berak ez zuen hoinbertze **artamenez** inguratu lehengo Salvador Allende president ohia, berak baztertu zuena Jendearen itxurarik ez, han sofrituen ondotik, burua galduxea, ez letra, ez erremedio, **artamenik** gabe atxikiak, deus ez jakin beren familiako eta ezagunez. Herria

---

artamendatu, artamenda(tu), artamendatzen 1 du *ad ipar* gomendatu.

Mediku baten ikustera joatea **artamendatzen** zidan. Daniel Landart

Apairua arina zen, arina, fraide bati doakiona, eta medikuek ere **artamendatzen** dutena, gantzarik bildu nahi ez duenari. Marzel Etxehandi

Gogoeta bide honetan barrena abiatu nahi duenari HURCH-en (1988) "Phonetics and Phonology or Phonology and Phonetics" **artamendatuko** nioke. Lourdes Oñederra

Haren pentsamendu eta analisi fonologikoaz zuzenean irakurtzeko, beste askotan bezala, ELI FISCHER-JØRGENSEN- en lan eskerga **artamendatzen** dut berriz ere. Lourdes Oñederra

Apairua arina zen, arina, fraide bati doakiona, eta medikuek ere **artamendatzen** dutena, gantzarik bildu nahi ez duenari. Marzel Etxehandi

Artamendatzen zitzaigun guti jatea, estomaka berriz bere hartaratu arte. Marzel Etxehandi

Biek eskua tinkatu zidaten, eta joan ziren, kuraia atxik nezan **artamendatuz**. Marzel Etxehandi

Gizarte segurantzak ez ditu langileak diren kirolarien saihets-**artamenduen** gastua bere gain hartzen. Berria - Kultura

2 (era burutua izenondo gisa)

Pedagogia arduradunarekin ukanen duen solasaldian, hautagaiari **artamendatuak** izanen zaizkio bere proiektua bideratzeko aholkuak. beste batzuk harrituak egon dira gutun **artamendatu** baten bidez etxera abisatuak izaitea ez zirela gehiago hor bizi. Herria

---

artamendatze *iz* gomendatzea.

Argitasun eta **artamendatze** asko badira hor eta auzapezaren hitza. Herria

---

artamendu *iz ipar* gomendioa.

Gose ziren, eta egarri ere; Joanttoren esku zaurituek **artamendu** baten beharra bazuten. Elena Touyarou

Hontzari **artamendu** baten egiteko, itsumandoka bi egur puskatto bilatu eta atzeman nituen. Itxaro Borda

Duela zonbeit denbora paalezia batek hartu zuen eta **artamendu** guzien gatik gaitzak bereganatu du 82 urtetan. Herria

Artamendu guzien gatik pausatu da edo hobeki jainkoak bere ganat deitu du. Herria

Hala kontsolatzen ziren behintzat, pataska-orduetarik landa, zauriak eta minak sendatzen lehiatzen zirela, mediku **artamenduetarik** urrun, hain urrun. Itxaro Borda

Herri ttipietako elizetan hetsirik, **artamendurik** gabe, janari eta sendagailurik gabe, berak bizirik irauteko gutieneko ahalbiderik gabe aurkitzen ziren tokiko jendeen bihotz onaren bizkar bizi ziren. Elena Touyarou

Sarako xaharretxean **artamendutan** zen. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artamendu guzien gatik** (4)

---

artantzu *iz* ardi antzua.

Herenegu arratsean azeriak bi **artantzu** bota zituela Mendibilen... Patziku Perurena

Hirulau (edo bosei) hilabete aurretik begia emana eduki du artzainak artaldean, akatsen bategatik haragitako bereiztua; nere ume denboran **artantzu** aharikoa, zikoroxta, alondoa eta holakoak izaten ziren endemas arakaitako. Patziku Perurena

---

artapean *iz* artaren menpean.

Ezin, beraz, arrazoirik eta formarik gabe eskualdatu bere **artapean** dagoen ondarea; tentuaz administratu eta fideltasunaz kudeatu beharra du; kontularia da, administratzailea bezainbestekoa; bere jokabidearen erantzulea; kaltea ere ezin sortu, horren konponketa gauzatu gabe. Andres Urrutia

---

artapen *iz* zaintza, artatzea.

Lotsatu ere egiten naiz hainbesteko losintxa eta **artapenekin**. Hasier Etxeberria

Horren astuna arintzen da familia gaztearen baliabide eta **artapen** hunkigarrien bidez, hortxe ikusten baita norberaren birjaiotzea, hilobiaren ikusmugan gerarazten gaituena. Andres Urrutia

---

artartu ik **artatu**.

---

artasoro *iz* artoa landatu den soroa, arto landa, arto alorra.

Nekazari bat ikusi dute **artasoro** batean. Anjel Lertxundi

Harantzago, **artasoro** batek ehun metro hartzen zituen luzeran, eta hurrengo muinoaren oineraino iristen zen. Bernardo Atxaga

Aireratu ez eta, garbi utzi zuten zelai muturraren bukaeran zegoen **artasoro** batera sartu zen; helizeak zirtzildu omen zuen artorik asko, hura triskantza! Pako Aristi

Ubide baten gainetik jauzi egin, eta **artasoro** batera joan ziren ezkutatzera. Josu Zabaleta

Berde-berde eta sarria ikusten zen ibaiaren beste aldeko **artasoroa**. Anjel Lertxundi

Sagastiak zeharkatu zituen, **artasoroak** ere bai, eta eguzkia ezkutatzen ari zela ikusi zuen. Felipe Juaristi

Alpapa zelaiak ageri ziren errepidearen bi aldeetan, eta **artasoroak** urrutiago. Koro Navarro

Eta **artasoroak**, baratzeak, sagastiak, basoak, urruneko mendiak, haiek ere berdeak. Bernardo Atxaga

Oraintxe eraman dituela seme-alabak **artasorora**. Anton Garikano

Lau gizon soroetan barna joan ziren, **artasoroen** artean, errepidearen alde batetik, eta beste lau zetozen beste aldetik, sagarrondoetan zehar. Koro Navarro

Artasoroetan eta galsoroetan barna joan nintzen; eta baso batetik zehar. Eskarne Mujika

Gauez ibili, eta egunez **artasoroetan** ezkutatu eta lo egin, hori izaten genuen martxarik ohikoena. Anjel Lertxundi

Amerikatik Europara heldu da **artasoroetan** kalte handiak eragiten dituen kakalardo mota bat. Berria - Gaiak

Kontatzera zihoakion zeinen urduri zegoen Baby Suggs goiz hartan, nola zegoen adi-adi, nola so egiten zuen **artasoroaz** haragoko ibaira. Anton Garikano

Etxe atzeko **artasoro** ertzetik joanez, Urkuxetako azken aldapa baino lehen, sagasti bat zegoen, beheko aldean sagar berdeak eta goiko aldean sagar gorriak ematen zituena. Pedro Alberdi

Jondoanez belea gorde, eta Jondone Petriz bildotsa, diote Iparraldeko **artasoro** zabal ordeka haietan. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artasoro alaiak** (5)

---

artasun *iz* arra denaren nolakotasuna.

Larderiatsuak, helduak, ar ezaugarriak begien bistan, zulo orotatik dariela **artasuna**. Markos Zapiain

Oroit gaitezen, esaterako, antzinako irudi horiekin, ugalkortasuna eta ematasuna edo **artasuna** irudikatzen zutenak. Berria - Kultura

Izan ere, forma biribilak, definizioz, emetasuna adierazten du; angeluek, berriz, **artasuna**. Joan Mari Irigoien

Ahuldaderik ez, femeninotzat jotzen ditugun fintasunaren edo forma gozoen arbuioa, **artasunaren** defentsa. Anjel Lertxundi

Zeharka begiratu zidan, irriño gartsu batez, eta orduan sexua kaiolatik irten zitzaidan ihesi; berak miresmen aurpegia jarri zuen, **artasunaren** goren gradua begiztatzen dutenean, gizonok emakumeei ikusi nahi izaten diegun aurpegi hori ikusi nion. Juan Martin Elexpuru

---

artategi *iz ipar* eritasunen bat duena artzatzen duten lekua. ik **artatetxe**.

Denen buru, burutik etzela untsa ikusirik, **artategi** batetarat ereman dute. Herria

Eskuetan eta aurpegian zauritua, berriketaria ereman dute **artategi** batetarat. Herria

Arrunt ahuldua, astelehen aratsean ereman dute **artategi** batetarat. Herria

Liburu interesgarria segur, hunkigarria ere ba, ikusten baita **artategi** hori, Jose Maria de Gamboa-k azpimarratu duen bezala, elkartasun-etxe bat ere zela eta ez entraalean. Herria

Chirac presidenta ospitaletik atera da joanden ortziralean, asteño bat Val-de-Grace **artategian** egonik. Herria

Luzaz eri egonik joana mundu huntarik, azken hogoita-hamar urteak **artategi** berezi batean iragan baitzituen, burutik nahasia zela, nehorekin biziki kurutzatu gabe. Herria

Osagarri zentroen ebaluaketa da ANAES batzordeen lana, ministerioaren manuz, **artategi** publiko eta pribatuetan. Herria

Duela zenbait ilabete zerbait ez ongi senditurik nahi izan du Pariseko **artategi** handietarat agertu. Herria

Gero, Donostiako hondartza nagusiaren bazter hortan, hain xuxen *La Perla* deitu mainu- **artategiko** jatetxean ederki bazkaldurik, denak joan dira handik zenbait urratsetan den itsas-erakustegirat. Herria

Hendaian, Serge Blanco fama handiko rugbilari ohiak duela hamalau urte ideki itsas- **artategian**, hogoita-hamar bat langilek orotarat ehun eta berrogoi dira greba egin dute nausiak nahi baitu horko mainutegia aratsetan berantago idekia atxiki bai eta igandetan ideki orai arte zerratua zelarik. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artategi batean** (4); **artategi batetarat ereman** (3)

---

artatetxe *iz ipar* artategia.

Artatetxe berriak eraiki daitezke, baina oraingo etxe batzuk handitzea ere ahalko da. Herria

---

artatsu **1** *izond* artaz betea.

Esku **artatsu** batzuek txanponak biltzen zituzten, etxearekin konpontxo egindako poliziak gelan sartzen ziren bitartean. Josu Zabaleta

Dendari dotore eta **artatsuak** hantxe segitzen du egunero mostradorearen atzean. Hasier Etxeberria

Testu hauta bere osoan orotariko analisietarako, lehen zatiko ebakin batzuk baino ez ditugu hemen aldatuko, iruzkinak irakurle **artatsuari** utziz: [...]. Joxe Azurmendi

Ford Madox Fordek artisau **artatsu** baten arduraz azaltzen du giza harremanen eta sentimenduen oreka ederra nolatan doan geldika-geldika ahultzen, azkenik era ikusgarrian zapartatzeraino -eromena, suizidioa. Markos Zapiain

Lisa, bere ongi izateko premia ase nahian, ez zen Macquartar **artatsu**, zentzudun, logikazale bat baizik. Karlos Zabala

Azterketa formaldatzailearen garapen eta ezarpen **artatsuago** baterako, ikus bitez 5.5. pasarteari egindako 8. oharrean aipatzen diren lanak. Itziar Laka

Zeinetarik inportantena Hipolita zeritzana baitzen, bere ohorezko dama eta laguntzaile leiala eta **artatsua**, amaren beztimendez arduratzen zena, baita haren garbitasun pertsonalaz ere, azal-ukenduez zein ile-kentzeaz. Joan Mari Irigoien

Lan **artatsua** da oso, gainera, eta behin azpildura josi eta gero... aise asko burutzen da. Mirentxu Larrañaga

Hitz eman zien dei egingo ziela, andereñoaren hitz **artatsuak** erabiltzera, baldin eta ezeren zantzurik sumatzen bazuen. Mirentxu Larrañaga

Zure aurrean eta zure heleran haizeak ihesi doaz, lur **artatsuak** azpian lore leunak zabaltzen dizkizu, itsas lautadek irribarre dagizute eta ortzi bareak argi hedatuan dizdiz. Xabier Amuriza

2 (adizlagun gisa; ik **artatsuki**) arta handiz.

Gizon gazteak tentu handiz eta **artatsu** bultzatu, altxatu eta lekuz aldatu behar izan zituen maletak. Mirentxu Larrañaga

Baldwinek kapelaz eta eskularruez agur esan zion eta atea **artatsu** itxita alde egin zuen. Lopez de Arana

Beheko aldean zeudenei so egin zien, Cook andrearen mintza-tutua jo zuen begiz, eta hari **artatsu** begira geratu zen, begiak zabal-zabal eginda. Mirentxu Larrañaga

Berez ez zion lagundu igotzen, baina igoera hain **artatsu** gainbegiratu zuenez, lagundu izan balio bezalakoxe ondorioa lortu zuen. Mirentxu Larrañaga

Irteteko ordua iritsi zenean, zutitu, mahaia utzi eta bulegoko kideei agur esan zien, **artatsu**. Irene Aldasoro

Hainbat gela miatu ostean, egurrezko aulki batean botata zeuden arropa batzuk jantzi, eta, bereak poltsa batean sartu ondoren, biltegitik irten zen, sartu zenean bezain **artatsu**. Aritz Gorrotxategi

Hobekien ezagutzen ditugunen gainean baizik ez mintzatzeagatik, hau da, hortik datozen aitoren seme portugaldarren gainean, ezin **artatsuago** zaintzen dituzte euren dobazakurrak eta alanoak, eurekin lo egitea atsegin izateraino. Jon Alonso

---

artatsuki *adlag* arta handiz. ik **artatsu** **2**.

Seme-alaba jator eta zentzudunak ziren, ikasle onak eta **artatsuki** jokatzen zutenak: beti garbitzen zituzten hortzak, ez zuten esaten gezurrik eta ez ziren jolasten hitz gordinak esaten zituzten kideekin. Mirentxu Larrañaga

Whittaker andrearen janzkera **artatsuki** egokitzen zen beti abagune bakoitzera. Mirentxu Larrañaga

---

artatu, arta(tu), artatzen **1** du *ad ipar* zaindu. ik **atenditu**.

Izen bat gogoan atxikitzen badute Baigorriarrek, da, gisa berezi batez eliza hau **artatu** duenarena, Léon Kurutxarrirena. Michel Oronoz

Basoilar hori ez zela, **artatu** zuen marexalaren arabera, edozein ihizi bezalakoa, zeren eta bere arrazakoen kantuaz bestalde baitzuen, ba, iduriz, gizonaren mintzoa... beraz gizonaren gogoa! Michel Oronoz

Neure gorputzari eragiteko, oso nekez hazten ez diren landare batzuk etxeko atzealdean **artatzea** hartu dut lan fisiko bakartzat. Txillardegi

Hark ez balu **artatu**, hilen zen, edo haur behartsuen egoitza batean aurkituko zen. Elena Touyarou

-Mañot, **arta** ezak zaldia -manatu zion etxe-mutilari. Aingeru Epaltza

Hilotza Kasr Al-Aini ospitalera eraman dute, eta baita urdanga ere, bertan **arta** dezaten. Patxi Zubizarreta

Inguratzen gaituen guztiak gutaz bakarrik ardura daitezela, gutaz bakarrik pentsa dezatela, gu bakarrik **arta** gaitzatela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Arta nezala, Aitak bezala, Aitzur eta jorra / Laguntzat hor nuela sotoko oporra. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zein medikuk **artatu** zaitu, laztana? Mirentxu Larrañaga

Aurreko bi egunetan, bera aritu zen konorterik gabea **artatzeko** erizain-lan esker txarreko eta nekosoetan. Mirentxu Larrañaga

Ospitalekoek baimena eman zioten orduko, haraxe eraman zuen Raymond, zaindu eta **artatu** ahal izateko. Mirentxu Larrañaga

Gaitz horiek **artatzen** ahalko dira Iruñea, Lizarra (Estella) eta Tutera (Tudela) hirietako ospitaletan. Herria

Ezintasuna irakurtzen zuen amaren begitartean, gaztigu dorpe; minbiziak zurgatu senarra eta erokeriak desorekatu semea biak **artatzen** zituen, olde bakarraz, sekula auhen edo zinkurinik entzunarazi gabe. Itxaro Borda

Famatuak ziren hamargarren eta hamaikagarren mendeko eritasun izigarria, "San Antonen sua", izurria naski, edo legena, **artatzen** zuten fraileak. Piarres Aintziart

Biltzen dituzte, hazten eta **artatzen** jende xahar, jende ezindu, jende herrebes guziak. Xipri Arbelbide

Besterik da artalde baten **artatzea**. Michel Oronoz

Gauez eramaten dituzte kolpatuak **artatzera**, gauez hornitzen dira janariz nahiz bertze zernahiz. Xabier Montoia

2 (adizlagunekin)

Batzuek uste ere dute oraino jendea hobeki **artatzen** ahal litakeela arta horientzat gutiago xahutuz bainan horren erraitea da erretxenik hain segur. Herria

1916an kolpatua izan nintzen, gas paralisatzaileak irentsi nituela ederki **artatu** eta sendarazi ninduen, bestela ez nintzen hemen zuen aitzinean izango. Itxaro Borda

Hartutako diruarekin -azeriak nahi edo ez nahi- urdetxo bat eramango zuen etxera, eta ongi **artatu** ondoren honen salmentak eman diruarekin behi baten jabe egingo zen. Pello Salaburu

Denek gogoratzen zuten editorea bere kortakoak mimoz **artatzen**, bizkarraren gaineko esku-zarta amultsuak banatzen, animo eroriak altxatzen, idazle desmotibatuak

adoretzen, idazle alferrak aupatzen, nartzisoak balakatzen, zalantzatiei segurantza ematen, seguruegiei frenoa jartzen. Jon Alonso

Bazkalondoan, emakumeek joan nahi izan zuten nik hain debozio handiz **artatu** nituen dohakabe haiek ikustera; ni eraman ninduten lagun. Jon Muñoz

Ardi lanen ondotik, behiak deitzi nituen eta behar bezala **artatu** . Daniel Landart

Kontu handiz **arta** ezan, nik heure aurretik egin bezala. Joxan Elosegi

Lehengo urtean eztiki **artatu** ninduten han, bi hilabetez, nire eriondoan. Aingeru Epaltza

Aita Mathieu ongi **arta** ezazu eta zutaz ere **arta** har ezazu! Elena Touyarou

Egin zen ber denboran filosofo eta mediku, Baezara itzuli, gorputzak eta gogoak zintzoki **artatzeko** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hark pasatzen zituen egunak bere mahastiaren inork baino hobeki **artatzeko** ! Daniel Landart

Eta baratzea artoski **artatzen** zuen, arratsalde osoak han iraganez, hau landa, hura jorra, hemen zurkaitzak ezar, hantxe tomateak esteka. Daniel Landart

Graxi zen bakarra, seme bat bezala **artatzen** zuena, etxea garbitzen zion, zuriketa egiten, harentzat janaria preparatzen eta biztanleriaren gogo-bihotzen berri ematen. Elena Touyarou

Urtean, 40.000 eri baino gehiago **artatzen** da hor, orotara 120.000 presuna ibiltzen direla horgo mediku-kontsultetan, gainerateko bisitari guziak bertzalde. Herria

3 (da aditz gisa)

Astean zehar zutaz **artatzen** ginen, gure bizien zerumuga zinen! Ramuntxo Etxeberri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artatu behar da (4); **artatu behar izan** (25); **artatu dituzte** (7); **artatu du** (5); **artatu dute** (5); **artatu ondoan** (3); **artatu ondoren** (4); **artatu zituen** (3); **artatu zuen** (8); **batek artatu** (4); **bertan artatu zuten** (3); **bezala artatu** (3); **ere artatu** (3); **erietxean artatu** (7); **etxean artatu** (5); **gehiago artatu zituzten** (3); **han artatu** (3); **haur artatu behar** (3); **jendea artatu** (3); **lagun artatu zituzten** (7); **medikuek artatu** (4); **ongi artatu duen** (3); **ospitalean artatu behar** (5); **ospitalean artatu zuten** (4); **pertsona artatu zituzten** (6); **sendagileek artatu** (3); **zaindu eta artatu** (3); **zauritu artatu zituzten** (4)

artatua izan da (9); **artatua izateko** (4); **bezala artatua** (4); **ongi artatua** (5)

artatuak izan (5)

osasun artatze (7)

osasun artatzea (7)

biktimak artatzeko (5); **direnak artatzeko** (3); **emakumeak artatzeko** (12); **erien artatzeko** (4); **gaixoak artatzeko** (3); **zaurituak artatzeko** (3)

artatzen ari ziren (3); **artatzen da** (4); **artatzen ditu** (5); **artatzen dituen** (5); **artatzen ditugu** (3); **artatzen dituzte** (9); **artatzen dituztela** (3); **artatzen dituzten** (4); **artatzen duten** (3); **artatzen ez** (4); **artatzen zituen** (3); **artatzen zuela** (3); **artatzen zuen** (3); **bezala artatzen** (4); **eriak artatzen** (3); **gehiago artatzen** (5); **hobeki artatzen** (3)

artatzera joan (4)

artatzerik gabe (3)

---

artatxiki **1** *iz* artoaren antzeko landarea, hegaztiei jaten emateko biltzen diren ale biribil horixkak ematen dituena *(Panicum miliaceum).*

Mujiken alorretan aspaldi burutu zen zekalea, aletu oloa eta hazi **artatxikia** , eta beraren lurretan, aldiz, artoa garatzen hasi berria zen eta garia hozitu gabe zegoen oraindik. Jose Morales

Inor ez da arduratu, ordea, **artatxikia** edo basartoa ikertzeaz, "ez baitute interes komertzialik". Berria - Gaiak

Hartu garia, garagarra, babak, dilistak, **artatxikia** eta zekalea; sartu dena ontzi batean eta egin ogia. Elizen arteko biblia

Andres izeneko agure zahar batek, berak ikusia bezala kontatzen zuenez, garagar, galtzuri, garagar gordin eta **artatxikiz** egindako ogi ugari izan zuten, edateko ur garbia, eta ahul zeudenentzat sagardoa urarekin, eta gainera babak eta barazkiak. Askoren artean

Zurezko ontzi karratu-sakonetan sailkatzen genuen alea (metro bat bai sakonean): garia honetan, artoa horretan, oloa hartan, zekalea hurrengoan, eta garagarra; eta basartoa, eta **artatxikia** , eta zalkea. Txillardegi

Kaiolan, ontzitxo batzuk zeuden, **artatxikiarekin** , barazkiekin eta urarekin. Juan Kruz Igerabide

Harrezkero, artoak eta **artatxikiak** , biek izan dute erroak lur hezez gozatzeko eskubidea. Iñigo Aranbarri

Goizean goiz jaikitzen zen, sapelarra, **artatxiki** adarrak, txori opilak erosten zizkien handizkako saltzaileei. Karlos Zabala

Itsasontzietan zeuden merkantziak bulegoan saltzen zituen, beste merkatari batzuei pasatzen zizkien arroz, azukre nahiz **artatxiki** sorta osoen jabetza agiriak. Bego Montorio

2 ***artatxiki arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Artatxiki arrunta ("Panicum miliaceum") "Poaceae" familiako espeziea da, artatxikietan ezagunena dena. Noiz eta non etxekotu zen ezezaguna da, baina duela 7.000 urte Transkaukasian eta Txinan agertu zen. ETC-entziklopedia

Australiaren ekialdean eta iparraldean, beste garapen bat ere izan zen; txinatarren antzinako nekazaritzan oinarrizkoa zen **artatxiki arruntaren** genero bereko artatxiki basa baten haziak bildu zituzten. ETC-literatura, saiakera

3 ***artatxiki garagardo*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Artatxiki-garagardoa amaituta, Amos Tutuolaren liburu eder haren oroitzapena etorri zait, eskaintza egin digutelarik: palmaardoa. ETC-literatura, saiakera

Artatxiki garagardoa , bantu garagardoa edo kaffir garagardoa maltatutako basartoren bidez egindako edari alkoholdun bat da. Garagardo mota hau ohikoa da Afrikan. ETC-entziklopedia

4 ***artatxiki iletsu*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Artatxiki iletsua ("Setaria italica") "Poaceae" familiako espeziea da, artatxikietan ekialdeko Asian hedatuena dena. K.a. VI. miliurtekoan jada Txinan hazten zuten. ETC-entziklopedia

---

artatxori *iz* txolarrea.

6an **Artatxoriak** gose direanean egiten dabena. Iñaki Arranz

---

artatzaile *(orobat **artazaile** g.er. eta **artatzale** g.er.)* **1** *izond/iz batez ere ipar* artatzen duena; artatzen duen pertsona.

Batean 35 urteko segoviarrak eta bestean 33 urteko australiarrak ere jastatu dituzte zezenaren adarrak eta mediku-erizainen tresna **artatzaileak** . Herria

Badira ere mediku eta **artatzaileetan** , aintzinean gerlako erabili armak berriz baliatu behar ukan dituztenak ohoinen kasatzeko. Herria

Orduan jakin nuen ospitaleko jende **artatzailearen** berri, eta zer eta nola egin behar zen haietarik izaiteko. Marzel Etxehandi

Cultus, latinez, axolatia, arduratia, arduraduna, arretatsua da; baita zaindaria, zaintzailea, **artatzailea** , begiralea, jagolea ere; eta apaindua, dotoretua, edertua ere bai. Askoren artean

Gehienak kotsutzen dire, lepraren usteldurak hartzen ditu, eta bai eriak bai Fraide **artatzaileak** gaitz berarekin hiltzen dire. Xipri Arbelbide

Erraiten zioten bere **artatzaileri** : [...]. Xipri Arbelbide

Ezin ukatua, Irisarriko Ospitalearen bisitari dagokio Konpostelako beilarien urratsen ezagutzea, bai-eta heien **artatzaile** lana eta ongi-etorria egiten zutenenak ere. Herria

Erran behar da egun gure medikuek eta erien **artatzaileek** badituztela behar diren guziak sofrikarioen soleitzeko. Herria

Urte haietan apeza zen arimaren **artatzaile** , zaurien berri zuena beharrez. Piarres Aintziart

Urte pare bat huntan borrokan ari zen bere gaitza ezin bentzutuz, mediku eta **artatzaileek** egin ahal guziak egiten ziozkatela bainan aldi bat gehiago eritasuna nagusitu.

Herria

2 (hitz elkartuetan)

Christophe aitarekin ari den herriko hargina dugu eta Isabelle eri **artatzale**. Herria

Egun hauetan jujatua izan da eri **artatzaile** bat Christine MALEVRE infirmiertsa, zazpi eri haundieri, hiltzeko erremedioa eman diotelakotz ez baitzituen jasaiten ahal heien sofrikarioak. Herria

Diru laguntza batzu eri **artatzaile** ikasketak segitzeko eta Benin eskualderat egonaldi egiterat joaiteko herriko bi gaztek galde eginik: 229 euro sokorria ekarria izanen zaie. Herria

Denek badakite mediku eta eri **artatzaile** ainitzek, sofrikarioen eztitzeko estakuruan, nehork uste baino gehiago eri handi hiltzen dituztela sendagailu bereziak emanez: hola eri handia lokartzen da bainan ez gehiago iratzartzekotan. Herria

Billabonan jarri zen mediku, bere sort-herritik bi urratsetan bainan zonbait urteren buruan beste bide bat hartu zuen gisa hartako ikasketa bereziak egundainokotan eginik, hortz **artatzale** (dentista) plantatu zen. Herria

Jesus Jubera, aho- **artatzailea**, 55 urte. Herria

3 ***aho artatzaile*** ik **dentista**; **odontologo**; **haginlari**.

-Jesus Jubera, **aho-artatzailea**, 55 urte. Herria

4 ***hortz artatzaile*** *iz* aho artatzailea. ik **dentista**; **odontologo**; **haginlari**.

Hortz artatzailea zen lanbidez. Berria - Mundua

Judutarra zen sinesmenez, 50 urtez Angelun bizi izan da, ofizioz **hortz** artatzaile, BAM-eko judutarren elkarte buru egona da luzaz. Herria

· **Hortz**-artatzailetzako ikasketak 1981. urtean amaitu zituen. Berria - Mundua

5 ***oin-artatzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)* ik **podologo**.

Gurutze Gorriaz gain, hiru mediku, hiru **oin artatzaile** eta lauzpabost kine egonen dira lasterketan. ETC-prentsa

Ostiraletan, Valldaura andreari **oin-artatzailea** etortzen zitzaion etxera, eta bisitak bere piano-eskoletako batekin kointziditzen zuen. ETC-literatura, saiakera

Inoiz edo, dena utzi eta **oin-artatzailea** izatea pasa zait burutik, baina nago plazera eta lana nahasteak ez liokeela mesederik egingo nire fetitxismoari; misterio guztiaz gabetuko luke. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eri artatzaile** (6)

---

artatzailego *iz* artatzailetza.

Haur **artatzailegoa** egiten zuen Hendaian. Herria

---

artatzailetza *iz* artatzailearen egitekoa edo lanbidea.

Hortz-**artatzailetzako** ikasketak 1981. urtean amaitu zituen. Berria - Mundua

---

artatzale ik **artatzaile**.

---

artatze *iz* zaintzea, zaintza.

Biharamuna arte **artatzerik** gabe utziak izan zirelarik zaurituak, Sitesek dio marine-en beste unitate batek aurkitu zituela han eta berriz ere tiro egin zietela. Berria - Mundua

Kontra jokarazten zidan objektu haien gaineko **artatze** maniakoak eta arrazoia ematen nien horrenbestez gurasoei, neuk horrelakorik nahi ez banuen ere. Joxan Elosegi

Kontua da **artatze**-gelan joan-etorri handia egoten dela batzuetan, beste lagun batzuk ere egoten baitira. Urtzi Urrutikoetxea

Elkarteko kide batzu ere han izan dira, erietxe batzuen moldatzen laguntzeko baita ere hango jendearen formatzen, osagarri eta jendeen **artatze** lanetan. Herria

---

artaxoar *(orobat **artaxonar**)* *izond/iz* Artaxoakoa, Artaxoari dagokiona; Artaxoako biztanlea.

Artaxoarrak ez zuen esan, baina guk, beharbada irakurleren bat oraindik guztiz jabetu ez delako, esan egingo dugu: txori hori, itxura guztien arabera, karlista samarra zen. Martin Anso

Begi bistako keinuak ere ez dira falta, pertsonaia gogoangarrienetakoa den Benito **artaxoarraren** izena adibidez. Markos Zapiain

Artaxonarrei hitz egiten eta batez ere barre egiten entzunda -trumoi zalaparta baitirudi jende horren barreak-, nerbioetatik jarriko litzateke Uliako hortentsia bat. Ramon Saizarbitoria

---

artaxonar ik **artaxoar**.

---

artazaile ik **artatzaile**.

---

artazi **1** *iz pl* guraizeak. ik **aiztur**.

Begi parean orraziak eta **artaziak** ikusi ditudanean, begiak zarratu eta ile mozkinak klik klik erortzen zaizkit lepo eta bular gainera. Joseba Sarrionandia

Artaziak eta josteko haria azokan bertan topatuko dituzte diseinatzaile aritu nahi dutenek. Berria - Kultura

Andre biek jostun lanabesak zituzten eskuartean, **artaziak**, hari-jostorratzak eta titareak erpuruetan. Josu Landa

Eskutatik hartu zion oihala eta, lasterka joanez -itxaroteak mantua berriro eskatuko zioten arriskua baitzekarren-, **artaziak** hartu eta ebaki egin zuen. Askoren artean

Segidan, **artaziak** hartuta, zast!, mototsa moztu zion. Jasone Osoro

Apal batean aurkitu zituen **artaziez** bizarraren kizkur luzeak ebaki zituen. Lopez de Arana

Saltzaileak, **artaziekin** ebaki bat egin, eta, trebetasun handiz, alderik alde urratu zuen oihala bi eskuekin. Jose Morales

Arbolaxka **artaziekin** apur bat kimatzen ari zen. Pablo Sastre

Pertikan eserita, inausteko **artaziekin** arrantza egiten du altzoan azpil baten antzera daukan angurri erdi batetik. Koldo Biguri

Gizon bat aulkian eserita, **artaziekin** bere burua zikiratzen. Oskar Arana

Izua zien bizar-labanei eta **artaziei** , eta inori ez zion ilea mozten uzten, lepoa ebakiko zioten beldurrez. Jose Morales

Seme, lor itzazu **artazi** batzuk, nire azazkalak mozteko. Askoren artean

Artazi ireki batzuen forma zeukan Museoak. Unai Elorriaga

Telefonoaren txirrin-hots etengabeak **artazi** txikien modura ebaki zuen ilunpea. Mirentxu Larrañaga

Haren gorputzaren masa hautsi hura guztia, lehen mugimenduetako oinaze hura guztia, joana zen llargi larru haren azpian, betortzen ukaldi guztiz zehatz haien, salto handi haien, **artazi** -jauzi basa haien, irribarre xuri eder haien azpian. Joxan Elosegi

Esan nahi da Museoak **artazi** -forma zeukala. Unai Elorriaga

2 irud/hed

Ahmedek presoen aldeko gizarte taldeen babesa besterik ez du topatu, baina "larri" dagoela aitortu du, areago Gasteizko alkateak **artaziak** hartu eta gizarte laguntzak murriztu zituenetik. Berria - Euskal Herria

3 ***artazi-jauzi***

Haren gorputzaren masa hautsi hura guztia, lehen mugimenduetako oinaze hura guztia, joana zen llargi larru haren azpian, betortzen ukaldi guztiz zehatz haien, salto handi haien, **artazi-jauzi** basa haien, irribarre xuri eder haien azpian. Joxan Elosegi

4 ***atzerako artazi*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Atzerako artaziarena eginez, erdi hegan, sareetara bidali zuen baloia deabru txikiak. ETC-prentsa

Lehen zatia amaitzear zela Patricia Mascaro etxekoen lehen gola sartzeko zorian egon zen, **atzerako artazia** eginez erremate ikusgarri batekin. ETC-prentsa

---

artazika *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)* *adlag* piruetak eginez.

Gazte batzuk patinekin zebiltzan gora eta behera, baranda eta zintarrietan **artazika.** ETC-literatura, saiakera

Zaldi-desfilea **artazika** etorri zen errepidean barrena, apoen tarrapata handi batekin eta hautsezko hodei lodi batekin, eta hain trinko eta hain gora igo zen hodeia, non mendi-mazelako aurpegia erabat ezkutatu baitzen Ernesten begietatik. ETC-literatura, saiakera

Hermione zezelka, **artazika** eta zilipurdika ibilia zen beren haurtzaroan, fanfarroikerian aritzeko aukera bakar bat ere galdu gabe -hala uste zuen haren zaharragoko ahizpa kopetilun isilak-, halako itxura barregarria eta etsia emateaz batere kezkatu gabe. ETC-literatura, saiakera

Ikusleen aurrean **artazika** eta zaldiari aiztur-jauziak eginaraziz, airean hartzen zituen andereek botatzen zizkioten loreak. ETC-literatura, saiakera

---

artazuriketa *iz* artaburuari hostoak kentzea.

Artazuriketa gertakari kultural gisa aztertzeko lana hautatu genuenean. Anjel Lertxundi

Gure datu eta apunteetan ezer gutxi ageri zen nonbait **artazuriketetako** ar-emeen arteko dialektikari buruz. Anjel Lertxundi

Ostera, nahiago izan dugu gezurra afalondoko kontuekin lotu, edo **artazuriketakoekin** , edo baxoerdiekin: [...]. Iñigo Aranbarri

Ahalegintzen nintzen batzuetan *Obabakoak*eko ipuinen hasierak -"Esteban Werfell"ena, adibidez- zenbat kosta zitzaizkidan adierazten; edo sinistarazten plagiatzeko metodoak ez zirela nire jaioterriko beila-gauetan edo **artazuriketan** hizpide. Bernardo Atxaga

Horra hor sutondoan edo **artazuriketan** kontatutako ipuinak, edo baserriaren inguruko guztiaren gainean eman beharreko jakintzagaiak bestela: abereak eta uztak, urtaroak eta arbolak, mundu honetako nahiz beste munduko izakien jokabideak... Xabier Mendiguren Elizegi

---

artazuritu, artazuri(tu), artazuritzen du *ad* artaburuari hostoak kendu.

Berdin-berdin joango ziren umezurztegiko edo eroetxeko ikuztegira; **artazuritzera** errotara. Anton Garikano

---

artazuritze *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* artoa zuritzea.

Artazuritzea izaten zen horietako bat: gauean egiten zen, eta bazeukan enkanto berezi bat. ETC-prentsa

---

arte[1] *iz* pagoaren familiako zuhaitz ez oso garaia, hosto-iraunkorra eta enbor-sendoa, haritzak bezala ezkurrak ematen dituena; zura erregai bezala eta ikatza egiteko erabiltzen da *(Quercus ilex)*.

Alabaina, ene herri hori, zuri bidea zabaltzeko nik suntsitu nuen amortarra, zedroa bezain tantai eta **artea** bezain sendo zena. Elizen arteko biblia

---

arte[2] **1** *iz* gauza ederrak sortzea helburutzat duen giza jardunbidea. ik**erti**.

Sizilian jaioek, ahal zuten guztia egin zutelarik armen bidezko greziar konkistari aurre egiteko, aldi berean beren borondatez onartu zituzten greziar erasotzaileen hizkuntza, erlijioa eta **artea** . Iñaki Mendiguren

Bera bezalako emakumeak ez direla inorenak deliberatu nuen, askeak direnez guztionak direla, gizateriaren ondare izatekotan ere, **artea** eta edertasuna diren bezalaxe. Patxi Zubizarreta

Gizaki ororentzat ei dela ulergarri **artea** , sasijakintsuarentzat izan ezik. Joxe Austin Arrieta

Artea faltsutzen egindako abentura hura bizitzako aldirik loriazkoenetakotzat oroitzen zuen. Oskar Arana

Eskulturaren **artea** aitzindariek eramango zuten hara eta haien ondorengoek galdu, hauek itsastatzeko **artea** ere galdu zuten bezalaxe. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Arte gazte eta berritzailea. Berria - Kultura

Arte "abstraktu", geometrikoa, berriz, bestelako afektuetan oinarritzen da, kanpoko munduarekiko harremanak eragin lezakeen larritasunari ordaina emango dion ordenaren premia psikologiko sakon batean. Josu Zabaleta

Ilusio behar horrek, asetzen zelarik aldi berean handitzen zenez, poliki-poliki **arte** plastikoak irentsi egin zituen. Josu Zabaleta

Greziako **arte** klasikoak egiten duen bezala. Josu Zabaleta

Berpizkundea bitarteko **arte** kristauak, adibidez, "formula" ikonografiko berak erabiltzen ditu etengabe, pertsonaia sakratuak irudikatzeko ez ezik baita eszena kanonikoak irudikatzeko ere. Josu Zabaleta

Pinturaren arloan, berriz, Mendebaldeko artistek artean gainetik astindu gabe zeukaten beren senide zen gizarte kristau ortodoxoaren **arte** goiztiarragoaren babesa. Iñaki Mendiguren

Donostiako Koldo Mitxelena kulturuneko fonotekan bertan edo etxetik ikus daiteke Nonahikotasuna lortzera, **arte** digitalaren historiari errepasoa egiten dion erakusketa. Berria - Kultura

Arte digitala agertzeak eraldatzea ekarri dio arte munduari, Brearen iritzi, bi ezaugarri gehitu dizkiolako: "eskuraezina da merkataritza edo salerosketa ekonomientzat, eta ezin da moldatu erakusketa estrategia finkatuetara". Berria - Kultura

Arte atseginzaleekin batera jostatze-praktikak ipintzen ditut; zeren eta zentzumenak engainatzea baita zentzumenen atseginetako bat. Iñaki Mendiguren

Horrek ez duela esan nahi zinema **arte** ilusio-eragile bat denik. Josu Zabaleta

Dirua egitearekin konparatuta, dirua gastatzea atzeranzko **arte** edo antzea dela esateko arrazoi bat zera da, familiak jarraitzen duela dirua gastatzeko antolamendu-unitate nagusi izaten, eta dirua egiteko, berriz, familia oso atzera utzi duela askoz antolaketa handiagoko unitate batek. Iñaki Mendiguren

Ikus-entzunezko **arte** garaikidea ulertzeko modu berri bat aurkeztu zuelako. Berria - Kultura

Artea eta bizitza bat egiteraino gerturatzen ahalegintzen da **arte** kontzeptuala. Berria - Kultura

Arte kontzeptualaren adibideak batu ditu 'Artea, gertatzen den gauza' erakusketak KM kulturunean. Berria - Kultura

Hainbat urteren ondoren, 2001ean ekin zion **arte** sortu berrien azokak ibilbide berriari. Berria - Kultura

Arte eszenikoak EHUko ikasketa planen barruan sartzeko eskatu dute. Berria - Kultura

Donostiak **arte** biurtekoari emandakoaz gain, hiriburuak asko jaso duela adierazi du Gurutz Larrañaga Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordeak. Berria - Kultura

New Yorkeko **Arte** Modernoaren Museokoak. Xabier Olarra

· Gure zibilizazioan, irudikapenezko **arte** guztiak, **arte** horietako bakoitzaren baldintza tekniko eta fisikoen arabera, errealitateaz eragiten zuten ilusio partzial batean oinarritu direla adierazi izan da. Josu Zabaleta

Imitaziozko **artea**, naturalista, *Einfühlung* hori den munduarekiko enpatiazko identifikazio-harreman horretan oinarritzen da. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Datorren hilean Belgradoko **Arte** Biurtekoan erakutsiko dute. Berria - Kultura

Donostiak **arte** biurtekoari emandakoaz gain, hiriburuak asko jaso duela adierazi du Gurutz Larrañaga Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordeak. Berria - Kultura

1934an ezarri zuten **arte** doktrina ofizialari hertsiki loturik egin zituzten beren lanak sasoi hartako artistek. Berria - Kultura

Argazkia **arte**-jarduera guztiz zilegiztatua izatera iristear dago, merkatuari dagokionez behinik behin. Josu Zabaleta

Adibide soiltxo bat jartzeagatik (baina zenbait **arte**-performancetan testigantzak badituena), diapositiba-proiektore bat, proiektatzen ari den bitartean, bera ere mugitzen baldin bada, hark proiektatutako irudia mugikorra izango da, baina ez du izango berezko mugimendurik. Josu Zabaleta

Hurrengo urtean Harryk **arte**-galeria ireki zuen, Bette-ren diruarekin osoki. Oskar Arana

Horrelakorik gaur egungo **arte**-museoetan eginak baizik ez datozkigu gogora. Josu Zabaleta

Arte-tratulari ohia. Oskar Arana

Rieglek herri kontzeptuarekin lotuta zihoan nahi artistiko batetik, Kunstwollen anonimo eta orokor batetik eratorritzat ulertzen zuen **arte**-produkzioa. Josu Zabaleta

Aipa daiteke, bere genealogia interesgarriagatik, 1893an Adolf Hildebrand alemaniar eskultore eta **arte**-historialariak argitaratutako teoria. Josu Zabaleta

XX mendearen hasierako **arte**-historialarien belaunaldi osoan zehar. Josu Zabaleta

Guggenheim museoko **arte** kontserbatzaileak. Berria - Kultura

Arte digitala agertzeak eraldatzea ekarri dio **arte** munduari, Brearen iritzi, bi ezaugarri gehitu dizkiolako: "eskuraezina da merkataritza edo salerosketa ekonomientzat, eta ezin da moldatu erakusketa estrategia finkatuetara". Berria - Kultura

Chicago ez zen **arte**-munduaren erdigunea, baina ez zen basamortu galdu bat ere. Oskar Arana

Izeba Petuniaren **arte**-lana, esnegain-meta eta azukrezko bioletadun postrea, airean zegoen dilindan sabaitik hurbil. Iñaki Mendiguren

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pop eta op **arteak**, minimalismoa eta abstrakzioa, diseinu-margolanak eta argazkiak, bideo-**artea** eta Espresionismo Berria. Oskar Arana

Ikus-**arte** helenikoen arimari deitze hori arkitektura, eskultura eta pinturaren hiru arloetan egin zen. Iñaki Mendiguren

5 ***arte abstraktu***

Italian ikasten nengoela, giza gorputzean zentratu nintzen, baina Euskal Herrira itzuli eta **arte abstraktuari** heldu nion. Berria - Kultura

Gerra amaitu zenetik Franco hil arteko **arte abstraktu** eta figuratiboa erakutsiko du hirugarren erakusketak eta 80 eta 90eko hamarkadetan ezagun bihurtu diren artista espainiar gazteen lanak izango dira azken erakusketan. Berria - Kultura

Tentazio horrek, pinturaren bilakaerak areagotu baizik egin ez duenak, ez ditu **arte abstraktuaren** teorialariak bakarrik tentatu. Josu Zabaleta

Halako zero metatik aurrera, kopuruen eremua uzten zuten muntek **arte abstraktuarenean** barneratzeko. Joxan Elosegi

6 ***arte areto***

Altxerri, Bilbik, Colon XVI.a, Vanguardia, Dieciseis, Trayecto, Windsor Kulturgintza eta DV **arte aretoak** izango dira Euskal Herriko ordezkariak. Berria - Kultura

Melkwegeko kafetegian, jatetxean, antzokian, zinema aretoan, **arte aretoan**, multimedia aretoan eta kontzertuetarako bi areto handietan, Euskal Herriaren Eguna ospatuko dute. Berria - Kultura

Auditorioak ohar bat plazaratu zuen atzo, "eurekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko» gaurtik astearte **arte aretoa** itxita egonen dela adierazteko. Berria - Euskal Herria

7 ***arte aurrerromaniko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arte aurrerromaniko edo germanikoaren artean, arte klasikoak eta bizantziarrak ere jarraitu zuten (harria erabiltzera itzuli ziren, basilika oinplanoaz eta dorreez apaindurik). ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***arte bilduma***

Artium museoak bere **arte bildumaren** katalogoa argitaratu du. Berria - Kultura

Erakusketa Donostian, Bilbon eta Iruñean egon da Lizarrara iritsi baino lehenago, eta 2000. urtean San Fermin Ikastolak antolatu zuen Nafarroa Oinez zela-eta eratutako **arte bilduman** du oinarria. Berria - Kultura

Eskulturak ere ageri dituk haren lorategian eta, etxe barnean sekula izan ez banaiz ere, inguruetako **arte bildumarik** ederrenetakoa omen zaukak. Hasier Etxeberria

Laguntza emango niekeen artista behartsuei, liburutegiak eta babes-etxeak sortuko nituzkeen, **arte-bildumak** sustatuko nituzkeen. Jose Morales

9 ***arte bisigodo*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Hala ere **arte bisigodoa** ez da hasiko 589. urtera arte. Kristau katolikoak bihurtuko dira orduan, arrianoak izatetik utzita. ETC-entziklopedia

10 ***arte bisigotiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Arte bisigotikoa Iberiar penintsulako Erreinu bisigotikoan emandako arteari deitzen zaio. Bisigodoak 415. urtean sartu ziren penintsulan eta 716. urtean, musulmanek azken probintzia bisigotikoak konkistatzean, bukatu zen beraien agintea. ETC-entziklopedia

11 ***arte bisual***

Ziberfeminismoa izango du hizpide eta **arte bisualen** munduko bideo bat ere aurkeztuko du. Berria - Kultura

Arte bisualei loturiko lanak batu ditu Gasteizko Udalak VTV 2004an. Berria - Kultura

Pinturatik musikara salto egin dut, nire margotzeko eraren zenbait ezaugarri nagusi, bat-batekotasuna, emozionalitatea, gordez eta aldi berean **arte bisualen** totalitarismoa baztertuz. Berria - Kultura

12 ***arte bizantziar***

Freskoek eta mosaikoek, sabaiak eta sabaiko filigranek, ezker-eskuineko leihoetatik datorren argia baliatzeko moduak **arte bizantziarraren** itzal luzea erakusten dute. Berria - Kultura

Freskoek eta mosaikoek, sabaiak eta sabaiko filigranek, ezker-eskuineko leihoetatik datorren argia baliatzeko moduak **arte bizantziarraren** itzal luzea salatzen dute. Anjel Lertxundi

13 ***arte budista*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Thailandiako arteetako lehen saria eta urrezko domina eman zizkioten 1977an, eta, 1980tik 1997ra bitartean bere herrialdeko **arte budista** erakusten ibili zen mundu osoan, baita bere artelanak ere. ETC-prentsa

Gupta artean iritsi zuen gorena **arte budistak**, baina artelan budistez gainera lan hinduistak ere egin ziren, eta garrantzi handikoak gainera. ETC-entziklopedia

14 *arte degeneratu* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Naziek "**arte degeneratua**" deitutako arte modernoa, berriz, trukerako erabili zuten guda amaitu arte. ETC-prentsa

Arte degeneratuaren erakusketak egin zituen jendeak barre egiteko, arte mota hori irrigarri uzteko, azaldu du Ismael Manterolak. ETC-prentsa

Franz Marcek kolore bizi eta ezohikoen bidez animaliak margotzen zituen eta nazien jazarpena izan zuen, **arte degeneratua** egitea leporatuta, bere artea debekaturik egon zen. ETC-prentsa

15 *arte eder* *pl*

Kristau Elizak ekarpen garrantzitsua egin zion Mendebaldearen aurrerapen intelektualari unibertsitateak sortu eta babestuz, baina elizaren kultur eraginak **arte ederren** eremuan izan zuen bere ekarpenik handiena. Iñaki Mendiguren

Ahmedabaden bizi zen eta SLU Unibertsitatean lizentziatura egina zuen **arte ederretan**. Gotzon Garate

Antzin Aroko greko eta latindarren garaian **arte ederrak** teknikak ere baziren, zer gertatu da oraingo **arte ederretan**? Askoren artean

Moraltasuna poliziaren esku eta **arte ederrak** antzoki-enpresarioen esku uzten dituen klase ertain kamuts baten kritiken mende jartzeko? Irene Aldasoro

Bilbon **Arte Ederrak** ikasi eta Toronton beka batekin lanean jardun ondoren heldu zen New Yorkera. Harkaitz Cano

Amaia Litxeratzu: 1965 eta 1967ko Barandiaran galeria landuko du, **arte ederretako** memoria gisa. Berria - Kultura

Hire ikasketen gastuak, **Arte Ederretako** diru-laguntza hura, nire kontura izan zituan. Eskarne Mujika

"Nire ametsa da **Arte Ederrak** ikastera Europara joatea. Juan Kruz Igerabide

Arte Ederretako Museoaren parean semaforo gorria ikusi eta beribila geldiarazi zuen. Gotzon Garate

16 *arte elektroniko*

Gaur hasiko da Bilbon MEM 2004, **arte elektronikoari** lekua eginez. Berria - Kultura

Musikan, net-artean, zineman, dantzan edota ikus-entzunezkoetan egiten den berriena ikusi ahal izango da egun horietan, eta **arte elektronikoaren** aukera berriek leku berezia izango dute. Berria - Kultura

17 *arte endekatu*

"Berlin Hitler gabe zer izango zen erakusten baitigu, gure zibilizazioak izan duen eten ikaragarri hori gabe, **arte endekatuaren** kontzepturik gabe, DDRko ghettorik gabe». Berria - Kultura

18 *arte erakusketa*

Hortik hurran herriko Urruti Jauregian bisita daiteke **arte erakusketa**, ikusgai dituela bi emazte artisten obrak. Herria

Atzo zabaldu zuen Vital Kutxak azken hirurogei urteotan diruz lagundu dituen 10 **arte erakusketetan** jasotako artelanen erakusketa. Berria - Kultura

Aurretik bertso saioa, **arte erakusketa** eta literatura emanaldia egin dituzte, besteak beste. Berria - Kultura

19 *arte erromaniko*

Bide horren gainti eta horren adarretarik hedatüko da **arte erromanikoa**. Herria

Bidenabar, erakusten dute Andre Mariak **arte erromanikoaren** garaitik Pizkunde garaira bitartean izan zuen bilakaera. Berria - Kultura

20 *arte eszeniko* *pl*

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaikoak beren kasa **arte eszenikoak** sustatzeko egitasmo bana antolatu nahi dute. Berria - Kultura

Gasteizko alkateak aho zabalik utzi ditu oposizioko alderdi guztiak, Musikaren eta **Arte Eszenikoen** Jauregia egiteko 77 milioi euro beharko dituztela jakinarazi dienean. Berria - Kultura

Suediako **Arte Eszenikoen** Zentroko zuzendaria izan zen ondoren. Berria - Mundua

176 lanpostu berri eskainiko ditu Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan, eta musika, **arte eszeniko** eta hizkuntza eskoletan. Berria - Euskal Herria

21 *arte figuratibo*

Ipar Euskal Herri honetan, gainera, **arte figuratiboa** ezagun bada, arte garaikideak ez du hainbeste tokirik adierazia izateko. Berria - Kultura

XX. mendeko Espainiako artea berrikusi nahi du Mendearen mendeko artea proiektuak, eta hurrengo atalak Francoren garaiko **arte figuratibo** eta abstraktua aztertuko du. Berria - Kultura

Arte figuratiboetan, espazioaren irudikapenaren figura bera izango litzateke eszena, eta eremuz kanpoa (agertoki inguruko pasabidea) baliatzen delarik, ongi gauzatzen du espazioaren irekitasunaren eta itxitasunaren arteko konpromisoa. Josu Zabaleta

22 *arte galeria*

Maialen eta Jesus Echevarria-ren obrak erakutsiak dira, Garazin, Josette Dacosta **arte galerian**. Herria

Ondoko kale txiki batean, Znad Wilii **arte galeria** poloniarra dago. Berria - Mundua

Uste baino errazago ireki zaizkio ez **arte galeria** ez museo diren toki berezi horien ateak. Berria - Kultura

Baina Harryk bazeukan **arte-galeriako** ezkutuko gelatik arte-lanak Smith-en lanen bildumari suharrenei saltzea, eta Valerie Smith-ek deus jakin ezean, trikimailuak etekin ezin hobea emango zuen. Oskar Arana

Egiazko artea ote benetako zaldi talde bat, **arte galeria** batean jartzea? Zergatik bai edo zergatik ez? Zaldien kaka ere artelanaren zati ote? Hasier Etxeberria

Asteazken iluntzeko ekitaldia, abangoardiaren harira itzuliz, Dap izeneko **arte galerian** izan zen. Edorta Jimenez

Nire lagun frantses maritxu horrek **arte-galeria** bat zuen Salvadorren, eta katalogoak idazten eta erakusketak prestatzen laguntzen niola esan behar izan nion. Karlos Zabala

Nolanahi ere, Six Gallery delako **arte galeriara** bildu ginen aspaldiko partez Allenen poesia errezitaldia entzutera, eta zalaparta hartan galdu zitzaidan Ryoko. Javi Cillero

Eta tipoa kudeatzen duen **arte galeriaz** mintzatzen hasi, eta udazkenean antolatuko duten neofiguratiboen erakusketarekin segitu du lasai antzean. Patxi Iturritegi

Dabidek eta biok -barreari ezin eutsiz, ezin ukatuko dut- baiezko imintzioak egin genituen, eta artean gure lagunak zirenak joan bezain laster, irriz karkailaka lehertu ginen. "Azkenean **arte galeria** bat zabaldu beharko dugu", amaitu zuen Dabidek. Patxi Zubizarreta

Ohartzen naiz egin berri dudan generalizazioren arriskuaz, baina inpresio hori buruan nuela egin nuen atzo arratsaldean Peggy Guggenheim-en museorainoko bidea, Veneziako erakusketa eta **arte-galeria** nagusiak dauden Dorsoduro auzoan barrena. Anjel Lertxundi

Martxa honetan, **arte galeriarik** garrantzitsuenak Williamsburgera aldatuko dituzte denbora gutxian eta SoHo berri bat bihurtuko da East River ibaiaren bestaldeko gune hau ere, artista aberaskumeentzako leku bat. Harkaitz Cano

Linok maitasuna egiten zuen Eugerekin eta **arte-galeriaren** inguruko lan lausoren bat zuen. Juan Garzia

23 *arte galkor* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Arte galkorra denboraren poderioz, epe laburrean desagertuko den adierazpen artistikoa da. Ez da gordetzeko artea, nahitaez desagertu behar den errealitatea eta, gordetzen bada, bere unean izan zuen balioa galduko du. ETC-entziklopedia

Olaizolak Urbasan egiten duena **arte** galkorra da. ETC-prentsa

24 *arte garaikide*

Horrez gain, euskal literatura atzerrian zabaltzeko ekitaldiak sustatzeko 87.150 euro jarriko ditu, eta 350.550 euro euskal **arte garaikidea** sustatzeko. Berria - Kultura

Eta hogei urterako eskuratutako beste 240 oliorekin, Balerdiri eskainiriko erakusketa jarri du **arte garaikidearen** aretoan. Berria - Kultura

Jendea hezteko eginarazi zituen errege Faraonek, eta gaur ere jendea hezteko dira **arte garaikidearen** mozkin eta eraikinik beldurgarrienak, eta, lehenaz gain, sineskortzeko, eskasteko eta gixaixotzeko. Iñaki Segurola

Gure begien aurrean **arte garaikidearen** museoa agertu da. Edorta Jimenez

Ihes nindoan eta Fatihak igurikatzen ninduen Beaubourg zentroko **arte garaikideko** erakustokian, harrigarrizko urdin bakarreko Kleinen margoaren aitzinean. Itxaro Borda

Patri maitea, ARCO **arte garaikideari** eskainitako azokan ibilia naiz egun batzuetan Madrilen. Hasier Etxeberria

25 *arte gotiko*

Espresionistatzat hartzen ditu Matisse, Braque, fauvistak, Blaue Reiter, noski (Klee, Kandinsky, Franz Marc), die Brücke (Nolde, Schmidt-Rottluf), eta orobat futuristak, lehenengo kubismo-aldiko Picasso, eta, zerrenda biribiltzeko, arte beltza eta **arte gotikoa**. Josu Zabaleta

Arte gotikoaren turistari, Erdi Aroko kristal zoragarriak zergatik falta diren, behin eta berriro ematen zaizkio esplikazioak, horiek diferenteak baitira katedralez katedral, eta polita da -sinbolikoki- diferentziari eta jarraitasunari segitzea historian. Joxe Azurmendi

26 *arte grafiko* *pl*

ELA eta LAB sindikatuek deituta, Gipuzkoako **arte grafikoetako** enpresa gehienek ateak zituzten atzo. Berria - Ekonomia

Ez zen pintore profesionala izan, baina **arte grafikoen** tailerrean egin zuen lan bizitza guztian eta horrek artearen mundutik hurre mantendu zuen. Berria - Kultura

Arte grafikoetan ere, teknologia da nagusi. Berria - Euskal Herria

Egailanen txostenak onartzen du, esaterako, badirela lanbidean lan eskaintza apala duten ikasketa batzuk: **Arte grafikoak**, Kimika, Osasuna, Ileapainketa eta Estetika, Irudigintza eta Soinugintza, edo Administrazioa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

27 *arte higigarri* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Arte higigarri edo arte eramangarri, Historiaurreko artearen ikerketa esparruaren barnean, neurri mugatu eta erabilerrazeko, hau da, gizakiek garraiatzeko moduko objektu batean eginiko edozein artelani (zentzu zabalean) deritzo. ETC-entziklopedia

Arte paleolitikoa bi adierazpen mota nagusitan banatu ohi da, batetik haitzulo eta harpeetako paretetan egindakoa (horma-artea), eta bestetik, euskarri askean egindakoa, hezur batean, harri batean, tresna edo objektuetan (**arte higigarria**). ETC-prentsa

Eta Paleolitoko **arte higigarritik** ekiten dio Usabiagak geure eremu geografikoan sortutako eskulturagintzaren historiari. ETC-prentsa

Agertu diren zintzilikarioek -gehienak dekoratuak-, okrezko arkatzek, **arte higigarriko** pieza batzuek eta haitzuloko gune sakonenetako batean aurkitutako margolanek haitzuloak Goi Paleolitoan, haitzuloaren une gorenean, duela 15.500 urte inguru, izandako une garrantzitsuen berri ematen dute. ETC-prentsa

Bestelako objektuak ere agertu dira indusketa lanetan, tartean, okrezko arkatzak eta **arte higigarria**, eta baita labar pintura arrastoak ere. ETC-prentsa

Kontuan izan behar dugu 22.000 urte baino gehiago dituen arte paleolitikoaz ari garela, arte labarraren kasuan, eta 14.000 urte ingurukoaz **arte higigarrien arenean**. ETC-prentsa

Aldaketa ugari izan zen garai hartan, mundu sinbolikoaren garapena da azpimarragarriena -**arte higigarria** eta hormetakoa, ehorzketak...-. ETC-prentsa

28 *arte higikor* *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi)*

Bultzagailuen zati batzuk, gai gogorrez (elur-orein adarrez edo mamut-boliz) egindakoak, era bikainean apaindurik daude eta historiaurreko **arte higikorraren** maisu-lanak dira. ETC-entziklopedia

El Horno kobazuloan (Ramales de la Victoria Ramales) agertutako **arte higikor** elementu baten azterketan parte hartu zuen. ETC-entziklopedia

Ikuspegi kronologiko batetik, esan daiteke Kantauri aldeko **arte higikorraren** ugaritasun handia Goi-Paleolitoaren azken bost milurtekoan eta Mesolitiko alderako trantsizioan kokatzen dela, alegia, Madeleine III. alditik Azil aldera: K.a. 13.500etik 8.500era. ETC-entziklopedia

Langai mota orokorrari dagokionez ere bi alderdi bereiz daitezke: arte higigarri **arte higikorra** eta labar artea. ETC-entziklopedia

Arte higikorreko lanetan, mailarik aberatsenen artean Erdi Magdaleniar aldikoa nabarmentzen da, bai kopuruarengatik, bai adierazpenetan duten kalitatearengatik. ETC-entziklopedia

29 *arte islamdar* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arte islamdarra islam erlijioarekin oso lotuta zegoen. Mahomak VII. mendean Alaren gurtza hasi zuen eta, oso denbora gutxian, Iberiar penintsulatik Indiaraino zabaldu zen erlijioa. ETC-entziklopedia

30 *arte islamiar*

Arte islamiarrari buruzko erakusketa zabaldu dute Louvren. Berria - Kultura

31 *arte islamiko* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Islamdar artea edo **arte islamikoa** Islamaren kultura duten edo izan dutenen artea da, erlijio honen sorreratik gaur arte, batez ere Al-Andalus eta India arteko eskualdeetan garatu dena. ETC-entziklopedia

128 orrialde zeuzkan, eta ikonografia ugari: gehienbat, **arte islamikoaren** erreprodukzioak baiki, ez zidan denbora askorik kenduko. ETC-literatura, saiakera

Arte islamikoari hartu dizkion laukiak ditu bere margoen euskarri. ETC-prentsa

Arte islamikoa, zentsura eta aurreiritzien gainetik, abiadura handian hazten eta indartzen ari den mugimendua dela uste du. ETC-prentsa

Hiriaren aberastasun materialak **arte islamikoaren** gorakada eragin zuen, batik bat Alhambrako errege-jauregiko arkitekturari, patioei eta barrualdeei dagokienez. ETC-zientzia, zuzenbidea

32 *arte klasiko*

Bi mutur horien artean, bada ikuspen ukimenezko/optiko bat, historian zehar urrutiko eta hurbileko ikuspenak (Greziako **arte klasikoak** egiten duen bezala), biak ezkontzen dakien eskola sail bati dagokiona. Josu Zabaleta

Eta artean ere jarrera berdintsua izan zuen, **arte klasikoaren** eta modernoaren atal teorikoez gain, koloreak nahasten irakatsi baitzigun, baita buztina lantzen ere... edo hara edo hona eramaten gintuen: behin Arantzazura, asteburu batean, Oteizaren apostoluak bertatik bertara ikustera. Joan Mari Irigoien

Bildumagile baten obrak dira, **arte klasikoa** eta berria, eta aretoak paisaian banaturik daude. Berria - Kultura

33 *arte konkretu* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Arte mugimendu hori subjektibotasunean oinarritzen zen, hau da, aurretiko **arte konkretuak** defendatzen zuen arrazionalismoaren aurka -geometria eta konstruktibismoari oso lotua- esperimentaziorako askatasuna eta adierazgarritasuna goraipatuz. ETC-prentsa

Hamarkada haren erdialdera, **arte konkretua** lantzen zuen taldearen konbentzio geometrikoengandik urrundu, eta material berri, teknika berriekin esperimentatzen hasi zen. ETC-prentsa

Zirkoak egitura familiarra izan ohi zuen eta belaunaldi batetik bestera pasatzen ziren **arte konkretuen** sekretuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pomodororen lehenengo eskulturetan nabarmena da informalismorako joera, baina aurreragokoetan **arte konkretuari** eta futurismoari heldu zien, eta futurismoko artistatzat jo izan da. ETC-entziklopedia

Arte konkretuak ere eragin handia izan zuen, margolana era arrazionalean planifikatzea bultzatzen baitu. ETC-entziklopedia

1948an, Gillo Dorfles, Gianni Monnet, Galliano Mazzon eta Atanasio Soldati-rekin batera, **Arte Konkretuaren** Mugimendua sortu zuen, arte abstraktua alde batera utzi gabe. ETC-entziklopedia

34 *arte-kontserbatzaile* *iz* museo bateko artelanak zaintzen dituen pertsona.

William Shank arte **kontserbatzaileak**. Berria - Kultura

Guggenheim museoko arte **kontserbatzaile** Margit Rowell aritu da komisario lanean. Berria - Kultura

Bilboko museoko arte **kontserbatzaileek** eginiko ikerketa lanari esker jakin zuten, urte batzuen ondoren, Sarnellik egina zela. Berria - Kultura

35 *arte kontzeptual*

Arte kontzeptualaren aitzindari Lawrence Weinerren (Bronx, New York, 1942) Azken finean eskultura azter daiteke ibilbidean aurrera, Alexander von Humbot zientzialariaren lanen gainean eginiko gogoeta. Berria - Kultura

Keinuen indarraren neoespresionismoaren garaia zen, eta minimalismoarena, **arte kontzeptualarena**; Gandiaren pintura, aldiz, oso bestelakoa zen: leuna, gozoa, goria, dotorea, fina... Berria - Kultura

36 *arte kritika*

Itzulpenak, hitzaldiak, artikuluak, irakurle txostenak, **arte kritikak** eta beste batzuk idatzi zituen. Berria - Kultura

37 *arte kritikari*

Prinsgton Unibertsitateko **arte kritikari** Sam Hunterrek idatzi du inoiz egindako instalaziorik konplexuena dela hau. Berria - Kultura

Wilhelm Worringer **arte-kritikari**, historialari, eta Abstraction et Einfühlung (ikus 2. kapitulua, III.2.2) liburuaren egileak sortu zuen -hala uste da behintzat- 1991n

"espresionismo" hitza. Josu Zabaleta

Haiek arteaz eta artearen eta bizitzaren arteko loturez idatzitakoek eragin handia izan zuten gerora Wilderen pentsamenduan eta obran, **arte-kritikari** gisa idatzi zituen saiakeretan batez ere. Antton Olano

38 *arte lan* *(ETCn 482 agerraldi; orobat **artelan** ETCn 12.344 agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **artelan** agertzen da)* *iz* artista batek onduriko lana. ik **artelan**.

Hura ez zen inolaz akatsa; aitzitik, perfekzio modu bat zen, **arte-lana**. Matías Múgica

Suerte pixka batekin bihar **arte lanik** ez. Pablo Sastre

Pariseko pare bat galeriatarako egiten zuela lan esan zidan, han pasatzen zuela urteko parterik handiena, eta Londresetik **arte lanak** inportatzen zituela, Madrilen saltzeko batez ere. Ramon Saizarbitoria

Bazarete pistoladun sare baten eta **arte-lanen** biltoki dirdaitsu baten bidez. Lutxo Egia

Duomoa eta edozein turistak ikusten dituen gainerako monumentu eta **arte lanak** ikusi genituen geuk ere. Xabier Montoia

Erreplika, iz. **Arte lan** baten aldakia, jatorrizkoa egin zuen artistaren esku berak egina. Xabier Olarra

Herriaren maiteminez leheregin **arte lanari** lotua, buruzagiek arduradun gisa igorria Frantziako lau haizetara, haizatua erranen dut nik, buruan ideia hori baitut. Piarres Aintziart

Halere, ez dut kexatzeko arrazoirik, maiatzera **arte lanez** lepo ibiliko naiz, Bartzelonako Lliure eta Liceu antzokiekin beste obra bat egingo dudalako. Berria - Kultura

Mendia ardatz hartuta, **arte lanak** egin dituzten margolari eta eskultoreen lanekin osatu dute aurton IbilArte, Euskal Herriko arte garaikidearen erakusketa. Berria - Euskal Herria

Komunikazioa **arte-lan** bat da. Txema Ramirez de la Piscina

Baita beste hainbat alferrikako lanek ere, Lázló-k egindako **arte-lan** guztiek eta artisau-lan gehientsuenek, esaterako (margolari eta eskulturagile izan zen garai batean, bere espirituaren onerako eta poltsikoaren kalterako). J.M. Olaizola "Txiliku"

Lehertu **arte lan** egin beharko duzue orain, zirgatzaileok!, lanari ekin beharko diozue denok batera, lehen paseatu eta jostatu zareten bezalaxe, eta izerdia isuri sokatik tiraka, Rus bera bezain amaigabeko kanta baten erritmoan. Jose Morales

Berriketan ari ginen ea auzoan **arte-lanak** erosteko dendarik baden edo ez, baina gero bitxigintzaren gaira aldatu gara. Oskar Arana

Seiak **arte lana** neukan dendan, lan gogor eta nekosoa, baina ondo hartzen nuen, jardun beharrak neure egoera ez hain mingarria sentiarazten baitzidan. Eduardo Matauko

Arratsalde batean, bi urte geroago, aita berandu **arte lanean** ari zen batean, bazkaria eta te izoztua eraman nizkion, eta Syd Glover zerrategiko arduradunarekin hizketan topatu nuen. Koro Navarro

39 *arte liberal*

Errealitate materialetatik espiritualetara, sentigarritik materiagabekora jauzi egiteko, **arte liberaletara** jotzen du, gramatikara zehazki, eta hemen zeinuen arazoan jartzen du arreta berezia. Imanol Unzurrunzaga

Hau lortzeko, eguneroko bizitzaren iritziak eragindako zauriak bakardadean kauterizatu behar ditugu edota **arte liberaletako** medikuntzaz sendatu. Imanol Unzurrunzaga

Hortxe daude, lekua ez den urruneko barnetegi modukoan **arte liberaletan** ikasitakoak eta oraindik ahaztugabeak; ez haien irudipenak, haiek beraiek baizik. Imanol Unzurrunzaga

40 *arte martzial misto* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Kirol hau, boxeoa eta borrokaren arteko konbinaketa bat zen, neurri bateraino, gaur egungo **arte martzial mistoetan** pentsarazten duena. ETC-entziklopedia

Ostean **Arte Martzial Mistoetan** lehiatzeari ekin zion. King of the Cage promozioan eginiko bere Arte Martzial Mistoetako debutean irabazi egin zuen eta ostean Strikeforce promoziora pasa zen. ETC-entziklopedia

41 *arte megalitiko*

Aurkikuntza Hilharriak taldeko kideek egin zutenean, 2003ko urrian, berehala berria zabaldu zen adituen artean, eta Alcala de Henareseko katedratikoek **arte megalitikoan** benetako adituakbertan aztertu zuten duela bi aste. Berria - Kultura

42 *arte minoiko* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Arte minoikoan agertzen den haurra bezalakoxea da agian, Jainko Amak eutsia gurtu dezaten. ETC-literatura, saiakera

Grezian mendebaldeko artea bideratu duen lehendabiziko arte-manifestazioak. Hasiera batean **arte minoikoa** eta arte mizenikoa eman ziren. ETC-entziklopedia

43 *arte moderno*

Arantzazuko Basilikaren eraikuntza mugarri moduan jarri da Euskal Herriko **arte modernoaren** hasierarako. Berria - Kultura

Oteizak, berriz, **arte modernoak** bizi zuen bidegurutzeak izututa eta tribuko oihartzunak galduta, cromlecheko hutsunean aurkitu eta eraiki zuen sosegua, eta cromlechean bildu nahi izan gintuen guztiok. Anjel Lertxundi

Begira ezak, manifestu osoa duk hori: errealismoa, naturalismoa duk, deiok nahi duan bezala, **arte modernoa** duk arte zaharraren parean hazi dena... Karlos Zabala

Margolaneko dantzarien formak Hermitagekoak ziren, baina Stephenek beste bertsio bateko koloreak eman zizkion (New Yorkeko **Arte Modernoaren** Museokoak). Xabier Olarra

Hhainbesteraino, non haien leku beretan aurkezten baita gaur egun, **arte modernoko** museoetan batez ere. Josu Zabaleta

Herriaren Arte eta Tradizioena; Itsasketarena; Frantses Monumentuena; eta azken biak, ni beti barruan sartuta edukitzen nindutenak: Gizakiaren Museoa eta **Arte Modernoaren** Museoa. Jon Muñoz

Behin berriro ulertzen dut **arte modernoak** irriaren baltsamua eskatzen duela, scherzoa. Juan Garzia

44 *arte mozarabiar* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Bi **arte mozarabiar** bereiz daitezke, alde batetik musulmanak Iberiar penintsulan zeuden bitartean eta hauek konkistatutako lurraldeetan eman zena, hau da, beraiekin batera bizi izan ziren kristauek egindakoa. ETC-entziklopedia

45 *arte mudejar* *(corpusean ez dago; ETCn 13 agerraldi)*

Maila ekonomiko altua dutenek etxe ikaragarriak egiten dituzte hirian bertan, **arte mudejarraren** ezaugarriak agerian utziz. ETC-prentsa

Horiez gainera aipatzekoak dira **arte mudejarra** Espainian (Errekonkistaren ondoren) eta Siziliako printze normandiarren artea, berez islamiar artea izan gabe ere, arte horren eragina oinarrizkoa duena. ETC-entziklopedia

Platereskoa, **arte mudejarra** eta gotiko flamigeroaren arteko elkarketa da. ETC-entziklopedia

46 *arte plastiko* *pl*

Zentzu zabalenean kulturaren bertz handi bat bezala ekarria den gune horretan, **arte plastikoak**, musika, soinua, zizelkadurak, bideoa, argazkilaritza, dantza eta ipuinak, oro bildurik eskainiak izanen dira heldu den maiatzean. Herria

Iruñea astebetez, eta abangoardiako joerek diktaduraren arrasto beltza gainditzeko bidea hartu zuten. Berria - Kultura

Hala, **arte plastikoetarako**, literaturarako edota musikarako zuen interesaren gainean berba egingo dute, eta XX. mendeko filosofian izan zuen eragina ere aztertuko dute. Berria - Harian

Atzo bertan, esaterako, haurrentzako **arte plastikoen** tailerra, pilotak egiteko tailerra, ehun akrobatikoen tailerra, hiri-baratzeen gaineko hitzaldia eta Pier Pasolo Pasoliniri eskainitako zikloaren barnean Salo, o los 120 dias de Sodoma filmaren emanaldia izan ziren. Berria - Euskal Herria

Baliteke film batzuetan halaxe kalkulatu izana ere, "zinema esperimentala" (gaizki) deitu izan den horren barruan batez ere, instituzio zinematografiko guztietatik horixe baita berariaz "**arte plastikoetara**" gehien hurbiltzen dena. Josu Zabaleta

Gai horiek, izan ere, nekezago dute adierazpidea **arte plastikoetan**. Josu Zabaleta

Horra zergatik deitzen diogun literatura: **arte plastikoetan** eta zineman bezalaxe, kontatzen dena norberaren baitan berregitea da narrazio literarioaren funtzioetako bat, distantziak banatzen dituen sortzailea eta irakurlea esperientziaren bidez lotzea. Iñigo Aranbarri

Arte plastikoen arloan ere asko ikasi zuen, katalogoak begiratuz batez ere: Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Remigio Mendiburu, Rafael Ruiz Balerdi, Nestor Basterretxea,

Jose Luis Zumeta, Bixente Ameztoi, Koldobika Jauregi... Juan Luis Zabala

Pompidou zentroa hankaz gora botaz gero, umezurtz lagako litzateke Frantziako kulturgintzaren muin benetakoa, bere baitan sortzen, lantzen eta mugitzen baita frantziarren musika, zinea, dantza, **arte plastikoa**, antzerkia eta diziplina oro. Hasier Etxeberria

47 *arte postmoderno* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Arte postmodernoa itzuli egiten da substratu material tradizionalera, arte-objektuaren obrara, "Artearen aldeko artera", iraultzarik, hausturarik egiteko asmorik gabe. ETC-entziklopedia

Hala, zera esan ganezake, bere irudikapen prozesuekiko erreflexiboa den **arte postmoderno** hau, osotasun irudikapen ezintasun baten aurrean aurkitzen dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Abangoardia historikoek defendatutako aurrerapen, berrikuntza eta utopia politikoaren aurrean, **arte postmodernoak** kultura popularraren, eklektizismoaren eta dekonstrukzioaren aldeko apustua egin du, iraganeko forma eta estiloak nahasiz, errepikapenean nola berrinterpretazioan interes berezia jarriz. ETC-prentsa

Edozein mugaren gainetik dagoen **arte postmoderno** horren adibidetzat jarri zuen Aiestaranek Manu Chao. ETC-prentsa

Kultura eta **arte postmodernoak** oso bere egin duen kontua da: lehenago sortutakotik zerbait berria eskaintzearena, kopiarena, asimilazioarena, birziklatzearena... baina XIX. mendean dagoeneko entzun eta irakurtzen ziren halako kontuak. ETC-prentsa

Kopiaren erabilera **arte postmodernoaren** oinarrietako bat da, eta, Parmaren ustez, kopiaren debekuak kolokan jarriko lituzke arte mugimendu garaikide asko, arte kreazionista kasu. ETC-prentsa

Irudiaren labirintoak erakusketak **arte postmodernoak** oso bere egina duen asimilazioaren, kopiaren edo birziklatzearen inguruan egiten du gogoeta. ETC-prentsa

48 *arte prerromaniko* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Arte prerromanikoa edo aurrerromanikoa Europako Goi Erdi Aroko artearen garai bat izan zen, Erromatar Inperioaren erorialditik (K.o. 476) arkitektura erromanikoa hasi zen arte (1000. urtearen inguruan) iraun zuena. ETC-entziklopedia

49 *arte urbano* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

1970 eta 80ko hamarkadetan, ordea, **arte urbanoa** edo arte hiritarra loratu zen eta, ordutik, kutsu politikoa alde batera utzi eta funtzio dekoratibo, sozial eta komertzialagoetara daude bideratuta muralak. ETC-entziklopedia

Arte urbanoa metroan, parkeetan edota etxe azpietan ikus daiteke. ETC-prentsa

Arte urbanoak hiri bati mugimendu asko eta aberastasuna ematen diola pentsatzen du Juaristik. ETC-prentsa

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hip-hoparen kulturak eta **arte urbanoak** hartuko dute Aretxabaletako Ibarra kiroldegia, Udalaren eta Break On Stage jaialdiaren arteko elkarlanari esker. ETC-prentsa

Berlin, Londres eta Brusela jotzen dira nazioarteko **arte urbanoaren** meka handitzat. ETC-prentsa

50 *arte zelta* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Era berean, ukaezina da maiztasun altuenak zelten eremuetan ikusten direla beti, batez ere gaur egun arte edo duela gutxi **arte zeltak** izan diren eremuetan. ETC-entziklopedia

51 *arte zinetiko* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Arte Zinetikoa higidura mugimendua artelanaren elementu plastiko nagusitzat erabiltzen zuen joera da. ETC-entziklopedia

Artifizioak balioko duen ez dakit, baina **arte zinetikoa** dirudi. ETC-literatura, saiakera

Abstrakzio geometrikoak, op arteak eta **arte zinetikoak** euren ibilbidea egin zuten 50eko eta 60ko hamarkadatan. ETC-prentsa

Iragan astean hil zen Parisen Jesus Rafael Soto artista, **arte zinetikoaren** aita. ETC-prentsa

Musika elektronikoaren eta **arte zinetikoaren** ildoan mugitzen da Leeren proposamena, baina, etiketa hotsandikoetatik harago, soinu eta argidun eskala monumentaleko instalazio gisa defini daiteke. ETC-prentsa

52 *arte zuzendari*

Geroago, **arte-zuzendari** eta iragarki-diseinatzaile aritu zen. Xabier Olarra

Kontua da, Russell Spencer **arte zuzendariak** bilera eskatu zidala agur-naziaren sorrerari buruzko gag bat bururatu zitzaiola-eta. Harkaitz Cano

Goenagaren filma nahiko errealista izanik dekoratu artifizial gutxi erabiltzea hobetsi zuen Arretxe **arte zuzendariak**. Berria - Kultura

Mugatxoan-en **arte zuzendari** Blanca Calvok azaldu duenez, egitasmoak sormen prozesuari ematen dio garrantzia, ez azken emaitzari. Berria - Kultura

53 *artilezko arte* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Artilezko artea kaleko artearen aldagaietako bat da, zenbait izenekin ezaguna egin dena, besteak beste, yarn bombing (artilezko bonbardaketa), crochet guerrilla, kakorratz gerrilla, urban knitting (hirian trikotatu) edo graffiti ekologikoa. ETC-entziklopedia

54 *bideo arte*

Bideogintzaren, **bideo artearen** edo oro har ikus-entzunezkoen alorrean rara avis bat da Sao Pauloko (Brasil) sortzaile hau. Berria - Kultura

Bideo-arteak ez du arazo larririk izan instituzionalki zinema komertzialetik bereizteko. Josu Zabaleta

Pop eta op arteak, minimalismoa eta abstrakzioa, diseinu-margolanak eta argazkiak, **bideo-artea** eta Espresionismo Berria... Urteak aurrera joan ahala, Harryk eta bere anaia mamuek garai hartako joera eta gustu guztietako lanak jarri zituzten erakusgai. Oskar Arana

55 *bizantziar arte* *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Bizantziar artea, Bizantziar Inperioan garatu zen artea, eta era zabalago batean, inperio honen oinordekoena. ETC-entziklopedia

Haitzetan zulatutako eliza kristauen barruan **bizantziar arteak** utzi dizkigun margo ederrak daude. ETC-prentsa

Bizantziar artearen obrarik gorenetakoa da Santa Sofia eliza. ETC-prentsa

56 *dekorazio arte* *(corpusean ez dago; ETCn **47** agerraldi)*

Art Déco (frantseseko "arts décoratifs"-en laburdura; hots, "**dekorazio-arteak**") diseinuaren historiako nazioarteko mugimendu bat da, gutxi gorabehera 1920tik 1940ra arte iraun zuena eta askotariko esparruak landu zituena, hala nola arkitektura, etxe-barruen diseinua, industria-diseinua, moda, margolaritza, arte grafikoak eta filmak. ETC-entziklopedia

Orduan Arantzazuko Ama Birjina zilarrezko ganbarin rokoko batean esibitzen zen, pitxi eta zilarrezko koroez koroatua eta distirazko mantu dotorez estalia, bera zen baino tamaina handiago faltsua ematen ziotenak, ispilu eta **dekorazio artean**. ETC-literatura, saiakera

Ezagun batzuei esker, DPIn sartu nintzen, **dekorazio-arteen** eta arte aplikatuen eskola batean. ETC-literatura, saiakera

Dekorazio artearen maisu-lan guztizko hartan, ordura arte otartekoak eta garagardoak, txokolate vienarrak eta kremazko pasteltxoak eska zitezkeela pentsatzea norberaren eguneroko bizitza edertasunez inguraturik bizi zitekeela, eta hura guztia kolpe bakar batez desagertuko zela, Europako hiriburuaren bihotzean bertan...! ETC-literatura, saiakera

Parisko **dekorazio-arteetako** ikastetxean jardun ostean, aitarekin lan egin zuen margolari Ipar Euskal Herriko eliza aunitzetan dekoratzaile lanetan, baita Bearnekoetan ere. ETC-literatura, saiakera

Xarmaren, magiaren eta glamourraren esanahiak aldatu ziren gisan, komunen gaitasun diskurtsiboa ere modara, **dekorazio-arteetara** eta Hollywood-era mugatu zen. ETC-literatura, saiakera

Bartzelonako **Dekorazio-Arteen** museotik igaro ostean, Van der Roheri eskainitako erakusketa Bilbora iritsi da. ETC-prentsa

Dekorazio-artearen barruan sartzen dute. ETC-prentsa

Artelanen kontserbazioaren esparruan hiru sail berri sortu dituzte: antzinako artea eta **dekorazio arteari** dagokiona; arte moderno eta paper gaineko artearena; eta arte garaikidea eta ikus-entzunezkoena. ETC-prentsa

Urte batzuetan han gorde zituzten eskulturak eta **dekorazio arteko** objektuak. ETC-prentsa

Ordena eta apaingarri klasikoen erabilera aske eta eskultorikoa, espazioen kontrajartze eta gainjartze dinamikoa, eta arkitekturako, eskulturako, pinturako eta **dekorazio-arteetako** efektu konbinatu dramatikoak dira haren ezaugarri nagusiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Elkarte horren ibilbidea 2003. urtean eten zen, baina bide horretan hainbat esparru jorratu zituen, geroko jarduna ere baldintzatu zutenak: ilustrazioak, **dekorazio-arteak**, eta irakaskuntza. ETC-zientzia, zuzenbidea

57 *ikusizko arte*

g ETBn oso oihartzun txikia dute gaztelaniazko zein euskarazko **ikusizko arteen** zein arte plastikoen edukiek, literaturakoek edo musika kritikakoek. Berria - Kultura

58 *kaleko arte*

Bocos jaialdian azalduko dutenaren gainean aritu da; "70eko hamarkadan hasi zen **Kaleko artea** da grafitia eta honen eboluzioa erakutsi nahi dugu». Berria - Kultura

Sarrerako stickerren bidez Kim Hiorthoy-k egindako horma panela eta lurrean ikusleak hartzeko dauden posterrak (jadanik ezin dira hartu irailera arte ez iristearen beldurrez) **kaleko artearen** desaktibazioa eta debaldeko artearen inguruko hausnarketa egiten du. Berria - Kultura

59 *karolingiar arte* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Karolingiar artea Europako arte estilo aurre-erromanikoa izan zen. VIII. eta IX. mendeetako Karolingiar Pizkundean garatu zen, karolingiar leinukoek mendebaldeko Europan agindu zuten garaian. ETC-entziklopedia

60 *karrika arte* *(orobat **karikarte**)* kaleartea.

Ibai ondoko bidetik Lainez **karrika artera** iritsi da. Pello Lizarralde

Bortz minuturen buruan, berriz ere **karrikartean** izanen ginen. Aingeru Epaltza

61 *labar arte*

Labar artetik itsasertzeraino jaitsi ginen, ilgora formako hondartza txiki batera. Joseba Sarrionandia

62 *mozarabiar arte* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Mozarabiar artea kristau mozarabiarren artea da, nahiz eta honen inguruan iritzi ezberdinak topatuko diren. Ikerlari batzuek **mozarabiar artea** Iberiar penintsulan musulmanak zeuden bitartean emandako artea dela diote. ETC-entziklopedia

63 *op arte* efektu bisualean oinarritzen den arte estiloa.

Pop eta **op** arteak, minimalismoa eta abstrakzioa, diseinu-margolanak eta argazkiak, bideo-artea eta Espresionismo Berria... Oskar Arana

64 *otondar arte* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Otondar artea Europa erdialde eta hegoaldean 1000. urtearen inguruan izandako Otondar pizkundearen garaian garatutako artea da. ETC-entziklopedia

65 *performance arte* *(corpusean ez dago; ETCn **44** agerraldi)*

Performance artea, "perfomance" edo ekintza artistikoa normalean probokatzeko asmoz sortutako espektakulu edo ekintza da. ETC-entziklopedia

Hirugarren estrategia da **performance artea**, non artistaren izatea urtzen baita desagertzen den ekintzan. ETC-literatura, saiakera

Performance artearen sorreran eta garapenean emakume artistek izandako rola arakatzen du. ETC-prentsa

Marina Abramovic **performance artearen** aitzindaria eta erreferentzia nagusia da, eta The Artist is Present (2012) dokumentala aurkeztu du MoMa museoak eskaini dion atzera begirakoaren harira. ETC-prentsa

PIPAF **performance artearen** nazioarteko jaialdia antolatu dute, eta hilaren 21era arte hainbat emankizun, hitzaldi eta tailer izanen dira. ETC-prentsa

Asier Zabaletak bideoarekin lan egiten du; Idoia Zabaleta **performance artetik** gertu dago; Matxalen Bilbaok dantza puruaren poetikatik hitz egiten du; Natxo Monterok fisikotasuna lantzen du... ETC-prentsa

66 *pop arte*

Pop artea kalean zegoenari emaniko erantzuna izan zen, eta, horretarako, kalean zeuden gauzak baliatu zituen. Berria - Kultura

Pop artearen eragin nabaria dute artelanek, eta koloretsuak dira, zur kolorekoak batzuk. Berria - Kultura

Espresionismoak eta **Pop arteak** azaleratu zituen balioak aspalditik zeuden Dalirengan. Berria - Kultura

67 *zazpigarren arte*

Ezaguna da Ricciotto Canudo-ren formula: bere L'Usine aux images (1927) liburuan esaten du zinema arte bat dela, edo izan daitekeela gutxienez, eta, areago, arte tradizionalen ondoren datorrenez (sei arte ziren, Canudoren iritzian), **zazpigarren artea** dela zinema. Josu Zabaleta

Gertu da **zazpigarren arteari** Donostian egiten dioten omenaldia. Berria - Kultura

Horrela sartu zuen lehen oina, hain zuzen, **zazpigarren artearen** munduan, kritikari gisa, Les Cahiers du Cinéma aldizkarian. Berria - Kultura

---

arte[3] **1** *iz* trebetasuna, antzea.

Ehiztariak bidean lasterka egin, fusila eraman eta erremusina eskatzen besterik ez daki, hori da bere **artea**. Koldo Izagirre

Zeren, gure amarentzat, soinekoak egitea **arte** bat zen, beti zer ikasia eskaintzen zuen arte bat: ongi moztutako eta ongi ematen duten oihalen **artea**, behar baino toles bat gehiago ez duten, behar baino milimetro bat gutxiago ez duten oihalen **artea**. Fernando Rey

Izan ere, zer da politika, gizonen sentimen aldaezinak hobeto gidatzeko eta sortzaile bihurtzeko **artea** baino. Juan Martin Elexpuru

Gizona zorion handienera edo ahalik eta zorigaitz txikienera eramateko **artea** da legeria onaren funtsa, bitzitzan izan daitezkeen gauza on eta txar guztiak kontutan hartuta. Juan Martin Elexpuru

Ingeniaritzan maiz jende asko behar izaten da makinak egiteko, hori baino beharrezkoagoa izaten da, ordea, ingeniariak bere buru barruan daukana, zientzia, ingenioa eta **artea**. Jon Alonso

Raimundo Silvak ikasi du ideia lausoak gora eta behera erabiltzearen **artea**, elkarrengandik bereizirik dauden hodeiak bailiran. Jon Alonso

Badakit norbere baitako sentimenen garapena heziketarekin ikasten den **artea** dela. Juan Martin Elexpuru

2 *arte martzial* borroka-artea.

Arte martzialetan gerriko beltza duena. Pako Aristi

'Tai xi xuan' izeneko **arte martziala** hain zuzen ere, europan "txinatar gimnastika goxoa" izendatua izan dena. Ramuntxo Etxeberri

- **Arte martzialen** lehiaketako finalaurrekoak. Aingeru Epaltza

Arte martzial mota hau ez dago sobera garatua oraindik Espainian. Berria - Kirola

Arte martzialen besta. Herria

Euskal Herriko **Arte Martzialen** elkartea. Herria

3 *borroka-arte*

Koreako **borroka arte** horren sekretu guztiak ederki ezagutzen ditu You Soo Lim maisuak. Berria - Kirola

Antzezlanak, bestalde, beste lengoaia batzuk uztartzen ditu, hala nola **borroka-arteak** eta txotxongiloak, eta ildo horretatik aipatzekoa da Mishimaren amamaren rola pertsona baten tamainako panpina batekin jokatzen dela. Berria - Kultura

Sorterrian, Sizilian, okina izan zen aita bezala, baina hirinari alergia zionez, bere zaletasunarekin, **borroka-arteak** praktikatzearekin, lotura zuzenagoa zuen lanbide batean hasi zen: Segurtasun enpresa batean, alegia. Berria - Mundua

4 *borroka-arte misto* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

2018an Annek **borroka-arte mistora** pasatzeko eta gizonezkoen aurka borrokatzeko asmoa adierazi zuen. ETC-entziklopedia

Borroka arte hibrido honek **borroka arte mistoak** ezagutaraztea lagundu du. ETC-entziklopedia

Knock-out (KO edo K.O.) zenbait kontaktuzko kiroletan, tartean boxeo, kickboxing, muay thai, **borroka-arte misto** edo karate, borrokaldia irabazten duen azken kolpea da. ETC-entziklopedia

Bere debuta **borroka arte mistoetan** 2009ko abenduan egin zuen. ETC-entziklopedia

Showtime-ren programazioan batez ere antzerkian kaleratutako filmak eta jatorrizko telesailak biltzen dira, boxeo eta **borroka arte mistoen** partiduekin batera, noizbehinkako stand komedia bereziak eta telebistarako egindako filmak. ETC-entziklopedia

---

arte[4] **1** *post* denbora hedadura bat noraino heltzen den adierazten duen hitza.

Hala esan nuen, baina orduan eman nizun arrazoia ez da hona gaur **arte** ezin etortzeko izan duguna. Oskar Arana

Bihar **arte** behintzat. Oskar Arana

Ez genekien guk orduan (geroago **arte** ez ziren egitateak argitu) gure neskatoa jatetxetik aterea zela atzeko ate batetik. Oskar Arana

Orain **arte** sekula ez da hain urrutira iritsi. Iñaki Mendiguren

Honen jabe izan ziren hemeretzi muggleri bizia kendu die orain **arte**. Iñaki Mendiguren

Lucy goiko solairura ohera daramadanean, ohartzen naiz akituegi nagoela bigarren gau batez lerroan besteekin berandu **arte** geratzeko. Oskar Arana

Hasieratik amaierara **arte**, Harry txikitzeko azpilana bi gizonen ekintza izan zen. Oskar Arana

Baina oker ez banago, hurrengo astelehen arratsaldera **arte** ez ginen biltzekoak. Oskar Arana

Lucyk ezingo zuen inolaz ere balentria zirraragarri hura burutu, eta, zalantzarik gabe, Burlington-eraino iritsi **arte** jarraituko genuen pentsatuta genuen bezala. Oskar Arana

Gero, izebak lana jarri zion, eta hura dena bukatu **arte** ez zuela ezer jango esan zion. Iñaki Mendiguren

Hogwartsen ikusi **arte**! Iñaki Mendiguren

Dobbyk familia hori zerbitzatuko du hil **arte**, jauna. Iñaki Mendiguren

Lucyren ohe ertzean esertzen nahiz hari Zane Grey-ren eleberritik irakurtzera begiak itxi eta loak hartzen duen **arte**. Oskar Arana

Apirilean elurra urtzen denean hasten da, eta ez da geratzen azaroan berriro elurra hasten duen **arte**. Oskar Arana

Jatetxearen aurrealdean aparkatu genuen **arte**, autoa ondo ibili zen. Oskar Arana

Dryer-ek merezi zuen, merezi, horrela tratatzea eta gehiago ere, baina hitzak ahotik atera zitzaizkidan **arte**, ez nuen jakin gauza izango nintzenik horrelako zakartasunerako, horrelako basakeriarako. Oskar Arana

Nola egon zen han zain, ikaratuta, kapelak bere erabakia ozen belarrira xuxurlatu zion **arte**. Iñaki Mendiguren

Inork ez zuen txintik esan lau platerak garbi utzi zituzten **arte**, eta horretarako oso denbora gutxi behar izan zuten. Iñaki Mendiguren

2 *aurki arte*

-Aurki arte, datorren larunbata arte. Matías Múgica

-Orduan **aurki arte**, esan bezala -erantzun zidan nagusiak. Matías Múgica

Aurki arte agian. Txillardegi

Eta **aurki arte**! Txillardegi

3 *beste bat arte*

Arrantza on izan eta **beste bat arte** -abiatu zen motozikletarantz. Migel Angel Mintegi

-Orduan ordezka dezagun "**beste bat arte**" batekin. Migel Angel Mintegi

Hau bukatu, topa egin, eta **beste bat arte**: orduan lasai utziko zaitut, baina hori baino lehen azkeneko pantaila jokatu behar dugu. Antton Olano

"**Beste bat arte**, Joakin. Iban Zaldua

Beraz, probetxu on eta **beste bat arte**! Patxi Iturritegi

Beste bat arte. Hasier Etxeberria

Agur irakurle eta **beste bat arte**! . Herria

4 *bihar arte*

-Bihar arte, Paul. Jasone Osoro

Bihar arte, Gexan... Janbattitt Dirassar

- **Bihar arte** orduan -esan zuen Ninik. Josu Zabaleta

Bihar arte, beraz, eta zorte on. Migel Angel Mintegi

Eta **"bihar arte"** esanez agurtu dut. Txillardegi

Zaude **bihar arte**. Juan Garzia

Bihar arte orduan, portuan goizeko hamaiketan. Joseba Sarrionandia

'Beste babu horrekin hitz egiteko **bihar arte** itxaron beharko dugu. Unai Iturriaga

Bihar arte ez dira etorriko. Agustin Otsoa

Ezin al zenuen **bihar arte** itxaron? Patxi Zubizarreta

Izan pazientzia **bihar arte**. Koldo Biguri

Bihar arte ez da jakingo Israelgo etxaldeetako langileek H5N1 birusa edo gripe arrunta duten. Berria - Gaiak

Bihar arte greban daude Bizkaiko Correoseko langileak. Berria - Ekonomia

Nazioarteko 20tik gora estatuburu eta gobernuburu, 30 agintari ohi eta 200 aditu inguru ari dira parte hartzen, atzo hasi eta **bihar arte**. Berria - Harian

· Emadazue **bihar arteko** epea. Juan Kruz Igerabide

5 *gaur egun arte*

Orduan abian jarritako estrategia oso bat da **gaur egun arte** ekarri duguna. Iñigo Aranbarri

Gaur egun arte, ezagutzen ditugun gizarteek produkzioaren eta kontsumo materialaren hazkundearen terminoetan planteatu badituzte aurrerapenak, beharbada orain horiek nola murriztu planteatu beharko da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Diktadura amaitu eta **gaur egun arte** ez da ikerketarik egin, eta erantzukizunak ezartzeko ekimenik ez da abian jarri. Berria - Harian

Belaunaldiz belaunaldiz hedatu den sentimendu horri esker iritsi zaio **gaur egun arte** Athletici bere filosofia. Berria - Kirola

Garaikoetxea, Ardanza eta Ibarretxeren gobernuek, 1980an hasita **gaur egun arte**, kanpo ekintza garrantzitsua egin dute. Berria - Euskal Herria

Garaikideengandik hasi eta **gaur egun arte** Kanten obrak pizturiko eztabaida eta pentsamendu mugimendu garrantzitsuenen berri ere ematen digu. Markos Zapiain

[Logikak] Aristotelesengandik hasi eta **gaur egun arte** atzeranzko urrats bat bera ere egiteko beharrik ez duela izan. Ibon Uribarri

Munduko gidaritza benetakorik gabe, nazioarteko lankidetza, **gaur egun arte**, premiazkoena zena egitera mugatu dela dirudi. Koro Navarro

Eta txosten, bilera eta dokumentuak ugaldu egin zaizkigu **gaur egun arte**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Historiak markatzen ditu festaren bilakaeraren mugarriak edo gailurrak, hasi jaiotza lausotik eta **gaur egun arte**. Askoren artean

· Alduden sortu zenetik **gaur egun arteko** bide luze hori dauku Gaby Etchebarne-k kondatzen. Herria

XIV. mendetik **gaur egun arteko** egileen lanak biltzen ditu: Levistki, Aivazovski, Gauguin, Picasso, Malevitx, Goncharova... Berria - Kultura

Barrokotik **gaur egun arteko** konpositoreen lanak eskainiko dituzte bost musikariek. Berria - Kultura

6 *gero arte*

Ate aldera egin zuen, bertan "**gero arte**" lehor batez agurtu zuen Larraitzek; berau itzulian zetorrelarik. Pablo Sastre

-Gero arte, don Pedro. Juan Garzia

Bueno, **gero arte** esaten dio Garbiñek urarekin amaitzean. Berria - Kultura

Han izango dira Gari, Mikel Urdangarin, Mikel Telleria, liburuan parte hartu duten bertsolariak, lankide ohiak, dantzariak, argazkilariak eta beste asko Josebari ekitaldi xume batekin **gero arte** esateko. Berria - Kultura

Eta galda Garazin noren semeak diren! **Gero arte** ! . Herria

Ez nukeen jakingo ezta ere masailean musu eman behar ote nion, eskua eman behar ote nion edo... azken batean egin genuen huraxe egin behar ote nuen: elkarri '**gero arte** " esan eta kitto. Jon Muñoz

Neure buruari jaikitze beretik ezarritako gidoiari atxiki nintzaion: begi-argi eta adiskidetsu beti, elkarrekin gosaldu ondoan etxeko atean musu eman eta '**gero arte** " batez agurtu banu bezala. Aingeru Epaltza

Gero arte , amatxo, eta mila esker. Itziar Otegi

Ez esan... Kikara berriak? Estreinatu beharko ditugu orduan!... Ongi, bai... **Gero arte** !". Aritz Gorrotxategi

" **Gero arte** ba, Juanan", esan zian Mariasunek egun hartan. Jokin Muñoz

Neskak agur esan zuen, **gero arte** , izan dezazula paseo ona, baina Napumoceno jaunak begira segitzen zuen, bai, esan zuen, eskerrik asko. Bego Montorio

"Bai, **gero arte** " esan dit, eta urten egin du berehala. Koldo Izagirre

-Gero arte , komandante jauna. Josu Zabaleta

7 *gero artetan*

Eta, **gero artetan** behar da pausatu eta pixka bat denak ahantzi eta aire hartu eta nunbait deskantsatu eta hola! Menane Oxandabaratz

8 *hurren arte* *(11 esaldi, 8 liburutan; ETCn 230 agerraldi)*

"Hurren arte, mutikoak, presaka nabil eta" esan zigun. Jon Arretxe

Irten ginenean, kaktusetarantz itzuli zen: "Agur, saguaro! agur, upel! agur indipiku! **hurren** arte!". Xabier Olarra

-Hurren arte -esan zidan artean ere. Eskarne Mujika

- **Hurren** arte -gorputza aterantz eramanda. Xabier Mendiguren Elizegi

Hurren arte! -eta atea itxi zion. Anjel Lertxundi

9 *hurrena arte* *(2 esaldi, 2 liburutan; ETCn 28 agerraldi)* hurren arte

Eta **hurrena arte** . Txillardegi

10 *hurrengo arte*

-Eskerrik asko, bada, Pilar, eta **hurrengo arte** . Jon Arretxe

-Hurrengo arte , bai. Iban Zaldua

-Hurrengo arte . Joxemari Urteaga

Berandutu egin zitzaiola esan eta adeitasunez agurtu zuen Anne, **hurrengo arte** , laster izango ahal da. Joxemari Iturralde

11 *ikus arte* ik beherago **27.**

Ikus arte. Herria

-Ikus arte izeba. Eneko Bidegain

-Ikus arte, eta hortan bururatzen da "Ez da musik" emankizuna. Menane Oxandabaratz

Maddalen airatu zen bere bizikletaren puntan, **"ikus** arte" erranik pollikiño, irri ezti-ezti batekin. Janbattitt Dirassar

Beste bi kilometro, eta **ikus** arte errepideari. Piarres Aintziart

· *iz* Goizeko elizaren aitzinean erran genituen **ikus** arteak. Piarres Aintziart

12 *ikusi arte* ik gorago **20.**

Agurtu zituen, **Ikusi** arte batez, eta gibelera joan zen. Elena Touyarou

"Ikusi arte", esan nion, eta jira eta kirol zelairantz abiatu nintzen. Bernardo Atxaga

13 *laster arte*

Laster arte, laztana. Jon Arretxe

Laster arte, Aitor. Paddy Rekalde

Muxu bat, **laster arte** . Joxemari Iturralde

Milesker eta **laster arte** . Herria

"Laster arte", esan dut trena abiatu denean. Anjel Lertxundi

"Laster arte!", egin zuen nire lagunak oihu ogi-saltzaile baten agurrari erantzunez. Bernardo Atxaga

Ez, ez; hau gizonen artean konpondu beharreko ohore kontua da: emakume batek traba egingo liguke... **laster arte,** andereok. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Laster arte, orduan -esan zion Harryk, dardarka zuen ahotsari konfiantza eman nahian. Iñaki Mendiguren

14 *orain arte*

Ez nauk inor izan **orain arte** , ez nauk inor gaur ere. Anjel Lertxundi

Orain arte , handik atera gabe pasa omen dituzu uda guztiak. Bernardo Atxaga

Goizean hasi denetik **orain arte** lan eta lan aritu da, atsedenik hartu gabe. Jose Antonio Mujika

Nolatan ez naiz **orain arte** konturatu? Jose Morales

Orain arte bezala, bere kasa eramango duela borroka. Txillardegi

Orain arte zergatik ez dizugun ezer esan? Anjel Lertxundi

-Egia duk, ezkertia haiz, **orain arte** konturatu gabe nengoan. Iñaki Iñurrieta

- **Orain arte** egiten nuena egiten jarraituko dut, gutxi gorabehera. Juan Kruz Igerabide

-Non jotzen zenuten **orain arte** ? -galdegin zien Sarak, musika isildu zenean. Felipe Juaristi

Gizon hori **orain arte** ez zen inoiz Venezuelatik atera. Pako Aristi

Orain arte ez baldin bazakiten zer den gerla, hemendik aintzina ondikotz ikasiko dute. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Dolu du, hala dio, **orain arte** ez haurraz arta gehiago harturik. Janbattitt Dirassar

Orain arte ez bezalako zerbait egin nahi dut, diferentea. Xabier Mendiguren Elizegi

-Sekula ez dizut maitasunik agindu, **orain arte** ez dut-eta jakin maitasuna zer den -esan, eta ahoa zakartua zuela konturatu zen mutila. Felipe Juaristi

Bi ñabardura garrantzitsu, baina, **orain arte** esandakoaren gainean: [...]. Iñaki Heras

15 *orain arte guztian*

Orain arte guztian ezer kontatu ez nire maitasun handiaz. Josu Zabaleta

-Hona nola hitz egingo diozuen Esau ene jaunari: "Honela mintzo da Jakob zure zerbitzaria: Labanekin bizi izan naiz eta harekin egona naiz **orain arte guztian** . Jose Antonio Mujika

16 *ordu arte* *(812 agerraldi, 99 liburu eta 140 artikulutan)* *adlag*

Ordu arte erreparatu ez nion mutil beltzaran bat aurkeztu zidan Hermannek. Anjel Lertxundi

Ordu arte , berari entzun nion arte alegia, ez zitzaidan bururatu nirea istorio tristea izan zitekeenik. Ramon Saizarbitoria

Ordu arte , ordea, inoiz ez nintzen hain eskala handian aritu. Matías Múgica

Ordu arte behintzat. Iban Zaldua

Ordu arte inork ez zuen halako galderarik inoiz egin, gaur egun harrigarri bazaigu ere. Jon Muñoz

Ez omen zuen antzik **ordu arte** izandako mutiko ipurtarin bihurriarekin. Xabier Olarra

Halaxe eten zituen **ordu arte** bere giza mailakoekin izandako harremanak. Patxi Zubizarreta

Aditz laguntzailea zen benetako korapiloa, **ordu arte** sekula ukitu gabea. Koldo Zuazo

Mutiko gazte bat, Raimundo delakoa, **ordu arte** ez ezaguna, ausartatu zen haien balakatzera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hamar urte pasa ziren aprendiz sartu nintzenetik eta **ordu arte**. Daniel Landart

Elizako beiradura nagusia, zurixka, marrazkirik gabea, ilunduz joan zen; nabarmenduz, aldi berean, aldarean piztuta zegoen kandela lodiaren garra, **ordu arte** ikusezina. Bernardo Atxaga

17 ***ordura arte*** *(**950** agerraldi, **143** liburu eta **271** artikulutan; orobat **ordurarte** g.er.) adlag* ordu arte.

Ordura arte idatzitako sarrerak kontatzeko lanik ez nuen hartu artean, baina ehunetik gertu izan behar zuten jada. Oskar Arana

Ordura arte Neguriko familia batena zen Loramendi txaleta erosia zuen. Joseba Sarrionandia

Ordura arte, Ebroko Ur Konfederazioko kideek isilpean izan zuten pitzaduren kontua. Edurne Elizondo

Ordura arte, neu izan nintzen beti lehenengoa sartzen, neu azkena irteten. Hasier Etxeberria

Florent begira zegoen nola azoka handi haiek **ordura arte** bildu zituzten itzal eta ametsetatik irteten ziren, egunezko argitan beren jauregiak infinituraino luzatuz. Karlos Zabala

Aski zituen, ordea, segundo horiek, **ordura arte** ezagun zuenaz oso bestelako buruko mina zela ohartzeko. Imanol Zurutuza

XVI. mendetik hona, ez da dudarik bere sorterriko lurrari, bere ama hizkuntzari, hots, nazioa definitzen duen edozein elementuri **ordura arte** ez zuen garrantzia eman ohi diola bakoitzak. Piarres Xarriton

Txabiren heriotzak **ordura arte** amets baten bizi izan banintz bezain lur joa utzi ninduen. Koldo Izagirre

Munduko Bankuko presidenteak zioen, elkarrizketa batean, ez zutela **ordura arte** aintzat hartu GKEen indarra, ustez askoz ere txikiagoa izango zela. Pello Salaburu

Tolosa, **ordura arte**, Gizarte Segurantzako anbulatorioa zen niretzat, familiako medikuak X izpiak ateratzeko edo espezialistak ikusteko bidaltzen gintuen osasun zentroa. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez omen zen konturatua: baliteke, baina halaxe zen, izan ere: **ordura arte**, begirada bat bera ere ez Hannak niri, goiz hartan. Joxe Austin Arrieta

Zer esan ez zekiela geratu zen ama; inoiz ez nion **ordura arte** hala erantzun. Juan Kruz Igerabide

Lan korapilatsua izango zen, zalantzarik gabe, **ordura arte** izandako korapilatsuena. Migel Angel Mintegi

Nozio garrantzitsu batez jabearazten gintuzten bi mutanteok: anomalia genetiko ohikoenek ez zekarten berekin egitura berririk, **ordura arte** ezezagunik eratzea. Juan Garzia

Astudillo Villamedianarekin eta Torquemadarekin lotzen zuen errepidearekin paraleloan joanak ginen **ordura arte**. Bernardo Atxaga

18 ***orduraxe arte*** *adkor* ordura arte.

Lo zurrungan zegoen ordurako, nahiz eta **orduraxe** arte maien erlijioaz, arteaz eta abarrez berriketan jardun berria izan. Joxe Austin Arrieta

19 ***ordutxo arte*** *adkor*

Espaloiaren erdian zabaldutako estolda-zuloan behera desagertzean, hamazazpi urte aurrerago, zer ez ote zuen ikusi nahi izan Perrettek, **ordutxo** arte ondo baino hobeto ikusten zuena? Jon Muñoz

20 ***sarri arte***

Sarri arte. Ramuntxo Etxeberri

Sarri arte. Eneko Bidegain

---

arte[5] 1 *iz* denbora edo leku bitartea.

Arte hartan, bere mertzeriatik atera zen Maite, ateari giltza eman eta, berengana kopetilun eginez. Pablo Sastre

Hain zuzen, **arte** hartan bizi izandako Orbe karrikaren inguruan. Txillardegi

Izan zen erran nuen aste hartako ene lehen perpaus baikorra eta eskutik heldurik, Chatelet Les Halles metroaren ezpain **arte** lizunetara lasterkatu ginen, Mairie d'Ivryko norabidea lehian. Itxaro Borda

Leihoetan pausatzen dira begiak eta ate txikietan, ate gaineko sinboloetan, kale estuen sarreretan, balkoi eta arkuetan, zoruan, etxe **arte** estutik apenas ikusten den zeruan, zubipeko ur uherretan, kanal-ondoan lotuta dagoen ontzi txikian, frutaz kargaturiko txalupan, poste baten puntan pausatu den kaioan, nonahiko hormetan ikusten diren kimera, grifo, maskaroi, gurutzeetan... Anjel Lertxundi

Bada, basko-sarearen eskaintza daroan eskutitza -gorago aipatu duguna- Estatu Batuen Kanpo-Sekuritate Zerbitzuek osaturik duten beste sare **arte** horrexetako baten harietan nahastu da, ostera. Edorta Jimenez

ez dakit zer pentsatu ote zuen nitaz Hencke-Bosch-eko nagusiek nire zerbitzura jarritako teknikari gazte hark; bakarrik esan dezaket, neure buruari ahalik eta ongien eusten saiatu nintzela eguerdi-**arte** hartan, ahal izan nuen bitartean. Joxe Austin Arrieta

Eta asea eta gosea hain bidegabe -eta desberdinkiro banatzen dituen merkatu sexualeko arrakastak ere badu, bistan denez, bekatuaren eta atentatuaren kutsu bat... jendeen jende-**artearentzat**. Iñaki Segurola

Arte honetan, ahizparekin egotekoa naiz, badu alabainan norbaiten beharra. Janbattitt Dirassar

Arte hartan bizi izan ziren azindetatik, esnetik eta gasnatik, bai eta gaztainetatik eta fruituetatik: bereziki sagarrak janez eta sagardoa edanez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 ***arte horretan***

Berant heldu da eta pentsatzeko da Zaron berean berant sartu zela eskolan zeren eta **arte horretan** Baionako fraileetan ere ibilia eta seigarrenean sartu beharko zukeen. Xipri Arbelbide

Arte horretan, eta neure otoitzetan etengabe haudala segurtatuz, besarkada batez hire osaba. Txillardegi

Negar muskila menperatu zuen han, Durangoko Basque Hotel likitsean; bera ere ez zen, **arte horretan**, hain garbi eta sanoki bizi izan. Itxaro Borda

Arte horretan, ene adineko mutiko zenbait, eskolan enekin ibiliak, ja polliki abiatuak ziren "nesken ondotik", berek erraiten zuten bezala. Janbattitt Dirassar

Arte horretan etxebizitzaren arazoari ere kantu bat eskaintzen diote. Berria - Kultura

Ea **arte horretan** norbait agertzen zaidan ibiltokirako, edo nik dakita? Bi azietak txorrotan garbitu, garbi-oihala mahai gainean hedatu eta han uzten dut baxera idortzen. Filipe Bidart

3 ***arteak hartu*** *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Arteak hartu ezinda nabil Euskal Selekzioaren gaia dela eta. ETC-prentsa

Colette altzariz altzari zebilen, toki arrotzean **arteak hartu** ezinik. ETC-literatura, saiakera

Arteak hartu ezinda jaiki zinen, azkenaldian ez bezala atsegin egon zinen. ETC-literatura, saiakera

Ikustekoa izango zen begietatik isuriko zuen amorrua, **arteak hartu** ezinik zegoenetan horrela egiten baitzuen beti. ETC-literatura, saiakera

Eta, hala, **arteak harturik**, lo egin dezaket, ez zure samurtasunaren habian, baina bai, behintzat, zure nireganako onespenean. ETC-literatura, saiakera

4 ***hortz artetik***

Pipa **hortz** -artetik kendu gabe. Anjel Lertxundi

-Egia hauxe da: haur bat sortu orduko gau minean abandonatua izan zela -bota zion, **hortz** artetik-. Elena Touyarou

Pistola pneumatikoarekin burua zulatu diote Dianari, eta seko erori da, mingain lodia **hortz** artetik erakutsiz. Patxi Iturritegi

5 ***izter arte*** *(orobat* ***izterrarte*** *eta* ***iztarrarte****)* hankartea.

Nik ere **izter** artea haztatu nahi nien txantxa moduan. Pello Lizarralde

Seriotasun osoz, **izterrartea** ukitzen diote denek elkarri, laburki. Xabier Mendiguren Elizegi

Azkenik, nire **izterrartean** pausatu zuen bere ahoa. Juan Martin Elexpuru

Bertze eskua nire **izter** arte harrotura eraman zuen. Aingeru Epaltza

Une horixe hautatu baitzuen nire lagun berriak ene esku herabea bere **izter** artera eramateko. Aingeru Epaltza

Esku bat [...] nire gerrian pausatu zen, eta **iztarrartean** behera labanduz, hauen erdian sartu eta nire arrakalan irristatzen hasi zen. Juan Martin Elexpuru

Nigandik bereizi gabe, eta zakila nire **izterrartean,** bainugelara eraman ninduen. Juan Martin Elexpuru

Nire garaipenaz segur, **izter** arteko pasabide heze anarteraino ahantzia esploratzera abiatu nintzen, gutizios. Aingeru Epaltza

Bere tresna **izter** artean laztandu zuen, ahora ere eraman zuen [...] eta azkenik ahuspez eta arnasestuka amaitu zuen emakumearen oinetan. Patxi Zubizarreta

Izter artean ikusi nion bere hura handiturik, eskuan, egonezinik. Juan Kruz Igerabide

· Lancelotek, kolpe ikaragarri batez, lurrera bota zuen Börs, zaldiaren zela **izter** artean zuela, uhalak etenda. Juan Kruz Igerabide

Zaldi zuri ikusgarria zeraman **izter** artean eta larruzko kapa beltza bizkar gainean. Aingeru Epaltza

Gurinak irrist egiten zidan **izter** artetik. Jasone Osoro

Urkatuaren gorputza zurrundu eta haren **izter** artetik errekasto ilun kiratsa etortzen zen arte. Aingeru Epaltza

Motoa da konfiantzaren bigarren pausoa, gorputzaren igurtzia sentitzea, zure ipurtaldea bestearen **izter** artean, bere eskuak zure gerri inguruan, lotsati. Pako Aristi

6 ***laino-arte*** *(orobat* ***lainoarte****) iz*

Laino-arte gero eta ugariagoetako argi-txinta horixkek lainoetako griskara zama-tsuarenekin kontrastatzen zuten. Anjel Lertxundi

Haiek beraiek izan ziren, ontzia **lainoarte** itsuan zetorrela sumaturik, itsas malden gailurretan argi faltsuak piztu zituztenak. Pako Aristi

· Kontuon hausnarrean nengoela, **laino-tarte** txikia zerratu zen zeruan, inguruko muino txikiak bezain eguzkirik gabe geratu zen kanposantua. Anjel Lertxundi

7 ***sagu-arte*** *iz* sagutegia.

Klaska! entzun zen, eta eskua **sagu**-arte batean harrapatuta geratu zen. Iñaki Mendiguren

---

artean **1** *postpos* aipatzen diren hitzek bereizten dituen leku edo denbora hedaduran; haien baitan, haiekin, haiek parte hartuz, haien lagunartean.

Gaztaroa nahasia da berez, han nortasuna hamaika duda eta durduza **artean** finkatzen baita, eta, bereziki, sexua han atzartzen delako. Janbattitt Dirassar

Ikastolako arduraduna barrera abiatu zen, edari freskoen manatzera eta **artean** sakelatik neskatoxe haren argazkia jalgi nuen: M6 telekateko Hot Form emankizunaren aurkezle astana baten itxura zuen, lotura izpirik ez noski Euskal Herriko baserrietako emazte beltzaran, pulpios, indartsu eta sanoekin! Itxaro Borda

Pozik zegoen bera ere, gustatu egiten zitzaion eskolako kanpeoia izatea, neska koskorren **artean** batez ere. Bernardo Atxaga

Alderdi argia pixka bat bazterrean utzi dut, geure **artean** ikusten dugunaren antzekoa baita. Gotzon Garate

Han, mendiaren eta itsasoaren **artean**, gizaki ausarten eta sendoen herria bizi zen. Agustin Otsoa

Lagun sakabanatuen **artean** gutun eta paketeak jaso eta albait arinen entregatzen ditut, gure herri urrunetik zer helduko zain beti ni ere, denok bezala. Joseba Sarrionandia

Sentitzen duzu haren kontaktua ipurmasailen **artean**? Jon Arretxe

Zientzialariek beren espekulazio eta teoriak egiaztatzeko behar dituzten tresna eta materialak eskaintzen ditu teknologiak, baina bada bi jarduera horien **artean** lotura estuagorik. Irene Aldasoro

Handik gertu samar, herria oinean daukan muino zorrotzaren gainean, gaztelu ilun bat dago zumar tantaien **artean** ezkutatua. Koro Navarro

Nahasmendu handia eragin zuen baieztapen hark herrikideen **artean**, eta iritzi oso desberdinak aditzen hasi ziren: Jon Arretxe

Oraindik ere hankatarteari sexu usaina zeriola eta burua izter **artean** sartuta, mingainaz busti zuen gorpuaren azken plazer ukitua. Jasone Osoro

Errealismo sozialistaren dotrina italiera batuaz zabaltzen ahalegintzen ziren intelektual haien **artean** heterodoxoegi gertatzen baitzen politika gai serioez gainera bestelakoez ere idazten, eta friulieraz idazten gainera, tematzen zen filologo gaztea. Josu Zabaleta

Xerealek liburu bat zuen esku **artean**. Iñaki Iñurrieta

Artzain gezurtiaren ipuinean bezala, ordea, gezurretakoa izan da aldarria, edo abiatzeko gurariak eragindakoa hobeto esanda, autobusa etorri baita, bai, baina herri **artean** dabilena, ez beraiek zain zeudena. Xabier Mendiguren Elizegi

Mozkortu ondoren titi **artean** lo egiteko?, galdetu zion lagunetako batek. Anjel Lertxundi

Esku **artean** duzun Kijoteren antologia honen atzean askoren ahalegina dago. Patxi Ezkiaga

Nire bizitza, beraz, Ogino metodoaren eta makina banatzaileetako libera bateko kondoiaren **artean** kokatzen da. Joseba Urteaga

Zarautz eta Orio **artean** dago etxea, garai batean baserri izana, errepide nagusia utzi eta Aiara doan bidearen hasieran. Xabier Etxabe

Kuxin baten muturra nerabilen esku **artean**, begiak altxatzeko lotsaz. Jesus Mari Mendizabal

Morrisonek berak hauxe zioen Maiteari buruz: "Nik idatzitako liburu guztien **artean**, hau izango da gutxien irakurriko dena. Anton Garikano

Dursley jaunak ezin zuen jasan arropa arraroz jantzitako jendea..., gazteen **artean** ikusten ziren janzkerak. Iñaki Mendiguren

Testu onen eta txarren **artean** ezberdintasunak zelatatuko ditu, eta inguruko jendearekin tematuko da hau edo hura irakur dezan, harik eta sumatu arte bakarrik dagoela, hondartzara heldutako balekumea baino bakartiago. Lander Garro

Pentsalariak Espazioa eta arima izeneko bere idazlanean aztertzen zuen sakonki maitasuna eta denbora-jauzien **artean** egon zitekeen harremana, hain zuzen ere, liburuko atal bitxi batean. Aritz Gorrotxategi

Emigrazio juduaren zentro bihurturik, bi gerren **artean**, New York zen yiddish kulturaren munduko gune nagusietako bat, Varsovia eta Vilniusen maila berekoa. Koro Navarro

Labana hortzen **artean** ipini nuen, largabistarekin kanoitzen baninduen ere pirata bat ikusia zela konta zezan. Koldo Izagirre

Zenbait metro harago, ozta-ozta antzematen zen harizti baten bazterra goizaldeko erreka-laino lodien **artean**. Joanes Urkixo

Ez dago modu hoberik teknikaren eta komunikazioaren **artean** dagoen aldea finkatzeko. Pako Aristi

Bere ondasun eta etxalde guztiak eman zizkien amari eta arrebei, bere diru guztia banatu zuen Erromako eskaleen **artean**, ez zuen bizitzeko gogo-izpirik ere, bere burua zaintzeari utzi zion eta baraualdi luzeak egiten zituen. Jose Morales

Ospe handia izan du Thomas poetak rockeroen **artean**. Koro Navarro

Anartean, arditegiaren murruari bizkarrez emana naizela, belea pausatu da pagoaren ageriko bi erro, bi zainen **artean** etzana dagoen goroldiaren gainean. Piarres Aintziart

Hetzelek eskuizkribua irakurri, eta harreman ezin oparoagoa abiatu zen idazlearen eta argitaratzailearen **artean**. Karlos Zabala

Argazkion **artean** Indalexio Tribisarrosperen irudia dago. Edorta Jimenez

Aita, Sebastian, mikelete **artean** eraman zuten kartzelara emakume bati laguntzeagatik, baina berehala atera omen zuten. Iñigo Aranbarri

Bere anaia Abelen itzalpean bizi izan da beti, eta horra non, ezustean, anaia besoen **artean** hil zaion, istripu batean. Daniel Landart

2 *postpos* arte.

Baina hori da nire fedea, eta hala sinistuko dut bizi naizen **artean**. Matías Múgica

Hiru gauez eta hiru egunez ibili naiz heriotzarekin borrokan bizi txiki eta ahul horren inguruan, berrogei ordu eman dut haren ohe ondoan eserita, sukarrak haren gorputz bero gaixoa inarrosten zuen **artean**. Eduardo Matauko

Nik ez dut halako zorterik izan orain **artean** , Oñatiko Kontzejupetik aldizkariko mutil batek gozo begiratzen bazidan ere; nik ere ez nion batere begirada txarrik itzultzen, eta esperantza neukan, agian oraingo honetan... Xabier Mendiguren Elizegi

Neoizko argiak erdi zintzilik... /... daude taberna gainean... /... egin nazazu zurea kantak dirauen **artean** . Paddy Rekalde

Apurka-apurka ugaldu dira farolak Laudiotik aurrera eta, A-8aren lotura gunean, haranak zulo zabal hartara jaurti balitu bezala, erdi itsututa ibili da Jose, erretina hartaratu **artean** . Urtzi Urrutikoeetxea

3 *adlag* oraindik; bitartean.

Hala ere, apenas nekien nik **artean** euskaraz, erdi analfabetoa nintzenez gero. Joan Mari Irigoien

Haren emaztea gaztexeagoa zen, eta gazte baten mardultasuna gordetzen zuen **artean** . Juan Martin Elexpuru

-Ez nuen uste etxean izango zinenik -aitortu zion zintzoki-, azokan baitzinen **artean** honako bidea hartu nuenean, eta oihalik gehienak saldu gabe. Imanol Zurutuza

la konturatu gabe egin nuen, eta, gainera, zazpi edo zortzi bat urte besterik ez nituen **artean** . Jon Muñoz

Ez zen **artean** Abenidara iritsi, gertakari arrunt batek bihotz taupaden erritmoa entzunarazi zionean. Pedro Alberdi

Baina bost urteren buruan **artean** karramarroa egin gabe egon, eta marrazkilariak beste bost urte eskatu. Patxi Zubizarreta

Aldaketa sozial handien garaia zen hura - 1970eko hamarkadaren hasiera -, eta ez zegoen **artean** argitalpen seriorik Alkimiari buruz. Xabier Aranburu

Gaztea zen **artean** , berrogeiak bete gabea, izaeraz zaharragoa bazirudien ere. Joxemari Urteaga

Hik gerran jarraitzera joan nahi huen, hala esaten hidaan, **artean** gerra hasi gabe heukan baina. Jon Muñoz

Erabakia hartu nuen, beraz, beste nonbait esertzekoa; bazen **artean** jarleku librerik. Joxe Austin Arrieta

4 *artean ere*

Guk bagenekien hori, ostia mihi gainean desegiten zitzaigun **artean ere** , gure mila bekatu aitorrezinekin. Joseba Sarrionandia

Familia horiek, bere aldetik, erka daitezke hain **artean ere** , eta batzuetan, ahaidetasunezko lokarri zaharragoak eta zabalagoak agertu ohi dira erkaketa horien ondorioz. Isabel Arrigain

Artean ere halaxe nengoen niganantz bihurtu zenean Alberto Ladron Arana

-heliografoari bisita: eguzkiaren orduen bandatxoa aldatu; udan, eguna luzeagoa izanik eta eguzkia **artean ere** lanean dabilenez gero, beranduago beste igoalditxo bat beharko txartel-bandatxoa aldatzeko... Pello Zabala

1864an, **artean ere** hiria harresiak eraisteko lanetan buru-belarri sartuta zegoela, trena zetorrela eta festaz, konpartsaz eta ereserkiz ospatzeko prestatu zen Donostia. Askoren artean

Eta halaxe, pauso motelez, aurrera egingo zuten puska batean, **artean ere** . Imanol Zurutuza

Erle bat, polenez bapo eginda baina **artean ere** gutiziatsu, hirustaz hirusta zebilen jauzika, nire aurrean, lau hankan nindoalarik. Mirentxu Larrañaga

5 *bizi artean* *(orobat* ***biziartean*** *g.er.)*

Eskuak nekatu gabe bizitzeko esperantza zukeen, demagun, eihera edo errota baten errentez **bizi artean** gozatuz. Aingeru Epaltza

Borgoniako maiordomo egin zuten, eta exijitu zion Klotariori **bizi artean** ez zezala ken kargu hartatik. Iñaki Iñurrieta

Hura izan zen lehen aldia nire patuaz jabetu nintzela, **bizi artean** ez ninduzula ezagutuko, alegia, eta neure horretan hiltzera noa: ezezagun, oraindik ere zure ezezagun. Eduardo Matauko

Nahi al zuen Harryren negozioa hartu eta **bizi artean** liburu bitxien eta erabilien artean aritzea Park Slope-ko erakusleiho batean? Oskar Arana

Bizi artean pazientzia izango dut. Patxi Zubizarreta

6 *hortz artean* *(orobat* ***hortzartean*** *g.er.)*

Marmar hiratua zerabilen **hortz** artean. Anjel Lertxundi

Astun altxatu bitartean, **hortz** artean egin zuen: "Jainkoarren! Patxi Zubizarreta

Atzeraka egin zuen, astiro, **hortz** artean gaitzesaka: [...]. Patxi Zubizarreta

-Tontolapiko hauek burutik eginda daude -esan zuen **hortz** artean-. Lopez de Arana

-Eta? Zer nahi duk hik? -galdetu zuen ministroak haserre, **hortz** artean. Jose Morales

Arestiko horrek? -Joxek **hortz** artean. Pello Lizarralde

· Familiakoak larritu egin ziren txakurrak katua **hortz** artean zekarrela ikusi zutenean. Patxi Zubizarreta

Hortzartean ez honako eta ez harako geratu zitzaion tomate azal bati tiraka ziharduen. Unai Iturriaga

Eta pipa bat zuen **hortz** artean. Anjel Lertxundi

Haren titiburuetara jaitsi nintzen eta bat hartu nuen nire **hortz** artean. Juan Martin Elexpuru

7 *kakotxen/kakotx artean* aipu marken artean.

Mañexen "maoismoa" ere **kakotxen** artean ezartzen düt, ez baitzen maozalea, zentzu hertsian, bistan dena."Totalitarismoak" (Ortega-k **kakotx** artean idazten du) Europa salbatuko duela. Herria

Benetan dituk "trebeak" [expeditivos dio, **kakotxo** artean, gazteleraz idatzia den postalak]. Edorta Jimenez

Kakotxen artean: berrogeita laugarren solairuko geografia-eremura mugatu izanak ongi frogatzen zuen, horretarako beharrik bazen, nire izendapena guztiz alferrekoa zela. Joxan Elosegi

8 *komatxo artean* aipu marken artean.

Asko hitz egin ohi dute **komatxo** artean bezala; ez zaie jaiotzen, ateratzen edo igotzen beretik. Iñaki Segurola

Anjak igorritako faxean, Hans Lauerrek epaiketa egunean esandakoa zetorren **komatxo** artean azpimarratuta. Hasier Etxeberria

Bigarren testuan zergatik datoz hitz batzuk **komatxo** artean eta beste batzuk ez? Iñigo Aranbarri

· Gehiegitan (eta gaizki) aurkitu ohi ditugu **komatxo** arteko hitzak gure itzulgaietan. Iñigo Aranbarri

9 *satorren artean egon* *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi)*

Kotara iltzatu ez bazenu, **satorren artean egongo** litzateke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta hori guztia kontuan hartu gabe litekeena dela azken hau ere honezkero **satorren artean egotea** , nahiz eta berez leku ezezagunean dagoen. ETC-literatura, saiakera

10 *zeure artean*

"Zerri zikin halakoak! -esan duzu **zeure artean** , pozik, baina, aldi berean, beldurrez. Rafa Egiguren

Arreta pizten dute: alkondara urdin argia, galtzak urdin ilunak eta bota beltzak, noiz euren artean noiz hiritarrekin eleketan; **zeure artean** diozu: "Gazte horrek beharbada baiezkoa emango die». Berria - Kultura

Belarriak txistu egiten dizu, eta **zeure artean** esaten: "baina honek zer uste ote du, ministerioren batean gaudela, ala?", edo "zer egin ote diot nik honi? baina, baina mesedez!". Iñaki Segurola

Hau dena beharrezkoa ote den galdegiten diozu jainkoari **zeure artean** . Xabier Montoia

Honi, ordea, ez zaio tutik ulertzen: ahots zoliz hitz egiten du, txoriek bezala, eta barrez dago denbora guztian." Hurbil zaitez gehiago, begira iezaiozu arretaz: Ivan Petrovitx da eta!"Hara!", esango duzu **zeure artean** ... Jose Morales

Ez da hala? Behera begiratu eta hasieran ez duzu beldurrik, **zeure artean** pentsatzen duzu: "egin beharra zeukaat". Anton Garikano

Halako konplizitate berexi bat lortzen eta lotzen da gainera, esatariaren eta **zeure artean** . Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 25 aldiz agertzen direnak)

abertzaleen artean (57); **adituen artean** (28); **agintarien artean** (27); **aldeen artean** (40); **alderdien artean** (130); **anaien artean** (29); **animalien artean** (28); **artean adostu** (26); **artean alde** (50); **artean aukeratu** (58); **artean aurkitu** (39); **artean bada** (59); **artean badira** (46); **artean baino** (55); **artean banatu** (99); **artean bat** (87); **artean behar** (26); **artean bere** (70); **artean beste** (62); **artean beti** (30); **artean bezala** (55); **artean bildu** (27); **artean bizi** (156); **artean bizirik** (44); **artean duen** (39); **artean**

duten (26); **artean egin** (180); **artean egin behar** (28); **artean egon** (88); **artean eman** (31); **artean erabaki** (55); **artean ere ez** (32); **artean esan** (57); **artean ez da** (47); **artean ez dago** (52); **artean ezin** (42); **artean ezkutatu** (26); **artean eztabaida** (29); **artean galdu** (36); **artean gazte** (26); **artean gertatu** (32); **artean hain** (28); **artean hainbat** (33); **artean halako** (30); **artean harreman** (36); **artean hartu** (98); **artean hautatu** (32); **artean hil** (28); **artean hiru** (36); **artean hitz** (51); **artean ibili** (59); **artean ikusi** (37); **artean inolako** (28); **artean inork** (27); **artean izan** (162); **artean jarri** (39); **artean kokatu** (45); **artean lan** (25); **artean lau** (30); **artean lotura** (54); **artean nola** (33); **artean onena** (32); **artean pentsatu** (37); **artean sailkatu** (34); **artean sartu** (109); **artean sartzen** (41); **artean sortu** (55); **artean zabaldu** (25); **artean zerbait** (32); **artisten artean** (27); **askoren artean** (195); **atxilotuen artean** (25); **aukeratuen artean** (28); **aukeren artean** (36); **baten artean** (111); **batzuen artean** (256); **beltzen artean** (33); **beraien artean** (71); **bere artean** (422); **beren artean** (375); **berrien artean** (38); **beso artean** (60); **besoen artean** (45); **beste askoren artean** (54); **beste batzuen artean** (78); **bestearen artean** (31); **besteen artean** (85); **besteren artean** (81); **bi aldeen artean** (29); **bi horien artean** (28); **bi taldeen artean** (45); **bien artean** (525); **bion artean** (235); **biren artean** (45); **biztanleen artean** (32); **denen artean** (297); **denon artean** (159); **desberdinen artean** (43); **diren artean** (36); **direnen artean** (140); **dituztenen artean** (42); **duen artean** (51); **dutenen artean** (184); **egileen artean** (25); **egin artean** (32); **elgarren artean** (104); **elkarren artean** (443); **emakumeen artean** (86); **enpresen artean** (34); **entzuleen artean** (62); **eragileen artean** (66); **erakundeen artean** (36); **erromatarren artean** (35); **esku artean** (682); **eskuen artean** (88); **espainiaren artean** (27); **estatuen artean** (28); **euren artean** (181); **euskaldunen artean** (68); **ezagunen artean** (26); **ezberdinen artean** (42); **ezpain artean** (32); **faboritoen artean** (61); **gauza batzuen artean** (26); **gauzen artean** (62); **gazteen artean** (185); **geure artean** (59); **gizakien artean** (89); **gizonen artean** (106); **gizonezkoen artean** (33); **gu bion artean** (46); **gure artean** (1029); **guzien artean** (81); **guztien artean** (632); **guztion artean** (129); **haien artean** (742); **hamarren artean** (51); **handien artean** (82); **handienen artean** (27); **hanka artean** (37); **hanken artean** (30); **harrien artean** (27); **hartzaileen artean** (29); **hatz artean** (30); **hatzen artean** (44); **hauen artean** (212); **haurren artean** (39); **hautagaien artean** (104); **heien artean** (47); **herrialdeen artean** (67); **herriaren artean** (26); **herrien artean** (131); **herritarren artean** (245); **hildakoen artean** (72); **hiritarren artean** (25); **hiruren artean** (64); **hitzen artean** (37); **hondakinen artean** (65); **horien artean** (1246); **horien artean dago** (33); **horien artean daude** (42); **horien guztien artean** (29); **hortz artean** (66); **hortzen artean** (29); **idazleen artean** (35); **ikasleen artean** (74); **ikusleen artean** (37); **indarren artean** (29); **irakasleen artean** (25); **israeldarren artean** (48); **izterren artean** (29); **jarraitzaileen artean** (30); **jende artean** (112); **jendearen artean** (104); **jendeen artean** (42); **jendetzaren artean** (45); **jokalarien artean** (76); **kideen artean** (113); **lagun artean** (55); **lagunen artean** (146); **laino artean** (45); **lanen artean** (57); **langileen artean** (71); **lauren artean** (30); **lehen hamarren artean** (49); **lerro artean** (42); **liburuen artean** (52); **nagusien artean** (80); **naizen artean** (38); **nazioen artean** (37); **neure artean** (307); **neurrien artean** (27); **nire artean** (196); **onenen artean** (135); **orain artean** (414); **ordezkarien artean** (27); **ordura artean** (26); **palestinarren artean** (40); **paperen artean** (33); **parte hartzaileen artean** (25); **pertsonen artean** (38); **pilotarien artean** (41); **politikoen artean** (64); **sailkatuen artean** (32); **sasi artean** (32); **sindikatuen artean** (28); **soldaduen artean** (25); **taldeen artean** (162); **txalo artean** (60); **ugarien artean** (29); **zaharren artean** (35); **zaleen artean** (47); **zioen bere artean** (29); **zuhaitz artean** (35); **zuhaitzen artean** (49); **zutenen artean** (58)

---

arteetan *adlag* bitartean.

Gertakari berria zen inmigrazioa ere, **arteetan** Euskal Herria bera zelako emigrazio harrobia. Koldo Zuazo

Arteetan tanta potoloren bat lerratzen zaio matelan, odol idortua hezetuz eta bisaian dabilzkion eulietarik bat, une batez, izutuz. Xabier Montoia

'Erlojua erabiltzen dut,' entzungo diozu Edwini, 'ez denboraren mendean egoteko, baizik eta **arteetan** denbora ahaztu ahal izateko.' Joseba Sarrionandia

---

artefaktu 1 *iz* zenbait osagaiz eraturiko makina, aparailua edo kidekoa. ik **trepeta**; **tresna**; **tramankulu**.

Autonomia eta informazio genetikoa: bizidunak aztertzean, askotan erabili izan da makinaren edo **artefaktuaren** analogia, biek barneratzen baitute antolaketa edo diseinua. Askoren artean

Artefaktu horretan gurpil ziklikoak ikus ditzakegu, etengabe jiraka. Guduak orduak eta orduak ziraukeen, baina azken emaitza berbera zen beti: sobietarrak **artefaktua** zegoen base sekretura iristen ziren, eta irabazten zuten. Berria - Kultura

Ez dakit aitak gaizki begiratu eta azpiko aldean ote zegoen eta Isabelen pisuagatik lehertu ote zen **artefaktua**, ez dakit, eta ez nuen sekula galdetu. Mikel Hernandez Abaitua

Horregatik esan dut lehen liburua beti mugitzen ari den **artefaktua** dela, irakurlearen parte hartze zuzena eskatuz datorrena. Berria - Kultura

Bellek ezetz dio, batik bat berak artelana **artefaktu** moduan ikusten duelako, forma esanguratsua duen tramankulu baten gisa hain zuzen. Askoren artean

Perpetuum movile txiki bat bilakatu zaigu liburu hau, egitura aldetik **artefaktu** oso eraginkorra. Liburuak baino gehiago, **artefaktu** literarioak dira Vila-Matasen emaitzak. Berria - Kultura

2 ***artefaktu arkeologiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Herri horretako mendi batean (Erge mendia, Marteau mendia, Marto mendia, Marto auzoa, cap del Martel auzoa edo Cap des Pènes) herri harresitu bat aurkitu zen eta barruan **artefaktu arkeologiko** ugari. ETC-entziklopedia

---

artega 1 *adlag* urduri.

Artega nago. Patxi Zubizarreta

Behia urduri eta **artega** doa pasabide estu batetik aurrera; odolaren usaina aditu du, nonbait. Patxi Iturritegi

Zer egin ez dakitela dabiltza, estu eta **artega**. Berria - Kultura

Artega hurbildu zen mahaira eta kartak ematen ari zen gizonari so egin zion. Iñaki Zabaleta

Artega hartuko duzu zerra zorrotza esku artean. Joseba Sarrionandia

Edonor **artega** jartzeko moduko heriotzez idatzi zuen Bergerrek Fusilamentu pelotoia olerkian, eta haren lerro batzuk errezitatu zituen. Berria - Kultura

Artega sumatzen zitzaion ordurako epaileari, eta akaso urduritasun horren eraginez adierazi zuen sumarioaren inguruan zer pentsatzen duen: "Diligentzia hauek oso-oso gaizki daude", aitortu zuen. Berria - Harian

Buxi doktorea beldurrak zegoen eta **artega** sentitzen zen. Patxi Zubizarreta

Raymond alaiegi zegoen **artega** egoteko. Mirentxu Larrañaga

Goio **artega** itzuli zen ohera. Joseba Sarrionandia

Egunero, Hamidak ezinegonez eta **artega** itxaroten zuen gizonaren etorrera. Patxi Zubizarreta

Une horretan aldameneko gaixo poloniarra ohetik **artega** altxatu eta errieta egin digu: [...]. Urtzi Urrutikoetxea

Loaldi llabur bat besterik egin gabe baina izerdi patsetan itzartzen zen Herbert, lehen baino askozaz **artega** eta urduriago. Xabier Mendiguren Elizegi

-Esaten zuten gerra ez zela sekula amaituko -aitzakiatu zion, **artega**-. Patxi Zubizarreta

Hildakoaren ohekoen artean Maisuaren gauzak bilatu nituen, **artega**. Edorta Jimenez

'Egia esango dizut!' esan zuen **artega**. Joseba Sarrionandia

Artega, ahurraz bekokia ukitu eta telefonora joan zen. Lopez de Arana

Lanari utzi eta, **artega**, idazmahaian atzamarrak kriskitinka erabili zituen. Patxi Zubizarreta

Eta bestea, haur-kotxetxoari begira, **artega**, zer gehiago esan ez zekiela. Anjel Lertxundi

Aurreko gelan, Jimmy harat-honat zebilen, **artega**. Lopez de Arana

Branek eskuak miazkatzen zizkien **artega**, hura azkeneko aldia zela nabarituz. Joanes Urkixo

Pippin mugitu egin zen, **artega**. Agustin Otsoa

Ez zuten deus esan, noizean behin begiratu besterik ez hankak bihurrituta eserita zegoen hari, kopetilun eta **artega**. Anton Garikano

'Ni pregoilaria baino ez naiz eta!' zioen **artega**. Joseba Sarrionandia

Gizona oso **artega** zegoela ikusi zuen. Gotzon Garate

Oso **artega** zegoen txakurra, jauzika eta saltoka ari zen etengabe. Joanes Urkixo

Zuk, berriz, oso **artega** dirudizu. Patxi Zubizarreta

Haritz lasaiago zegoen baina **artega** oraindik. Urtzi Urrutikoeetxea

Ni handik gutxira atzetik joan natzaio, benetako detektibeak baino askoz **artega** eta traketsago. Patxi Zubizarreta

Bai, **artega** egon naiz, biziki **artega**. Patxi Zubizarreta

Haize bafada bat bezalaxe sartu zen, aulki batean eseri, emozio bortitz batek arnasa estuturik, eta gero, hango guztiak nahiko **artega** iruditu zitzaizkionean, lehertu zen: [...].

Josu Zabaleta

Goizean zehar, jendea zinez **artega** eta bere onetik aterea ikusi dut, opor hasiera honetan oraindik ere urtean zeharreko egonezina kendu ezinik balute bezala. Patxi Zubizarreta

Artega samar nengoen, atzerapena nabaria baitzen. Urtzi Urrutikoetxea

Hilabete bat lehenagotik-edo nagusiak **artega** samar zirudien. Josu Zabaleta

Burua **artega** zerabilen alde batera eta bestera. Josu Landa

Animaliak **artega** mugitu dira gernu usaineko ilunpe epelean, zerbait kezkagarria sumatuko balute bezala. Patxi Iturritegi

-Berriro ezkontzeko benetako asmoa baldin badu -gaineratu zuen abokatuak, **artega** antzean-, zerbait egin beharko dugu haren dirua zekenen esku gera ez dadin... Patxi Zubizarreta

Norbaitek barazkiak batera eta bestera bereiziz gero, han ikusten zituen, elkarren ondoan, beren hosto ohatzean etzanda, begia erne, sasi artean aurkituriko txoriak bezain **artega**. Karlos Zabala

2 (izenondo gisa)

Isilune **artega**. Patxi Iturritegi

Bai, pornografia iritsia zen gure esku **artega** eta herabeetara. Xabier Mendiguren Elizegi

Zergatik duzu halako itxura **artega**? Juan Garzia

Badu halako trebetasun zalu eta **artega** bat keinuetan. Oskar Arana

Horrela taxutu zuen gogoan: amodioaren eta heriotzaren gaineko ganbera-obra baten moduan, emakume gazte pasionatu batekin eta pasioa galdu duen gizon zaharrago batekin: musika zail eta **artega** batek lagundutako ekintza baten moduan, ingelesez kantatua baina irudizko italiera bateranzko joera etengabearekin. Oskar Arana

3 ***artega batean*** oso artega.

Nasatik, **artega batean** joan zen etxeraino arineketan. Joseba Sarrionandia

Artega batean egongo zara, Bobbik ekarritako salda beroak epelduko dizu barrua, haizearen zirimolak entzunda, kanpoko gau luzean behelainoa eta elur itsugarria sentitzen dituzun artean. Joseba Sarrionandia

4 ***artega-artega*** oso artega.

Artega-artega zeuden elkarri begira, batak besteari hasteko eskatzen bezala. Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artega dago** (3); **artega jartzen** (4); **artega nago** (5); **artega nengoen** (3); **artega samar** (6); **artega zegoen** (9); **emakumea artega** (3); **oso artega** (4)

---

artegagarri *(ETCn **223** agerraldi, horietatik **127** azken sei urteetan)* **1** *izond* artegatzen duena.

Ezinak ezin, galderak galdera dira, eta filologo hark galdera **artegagarri** batzuk egin zituen, eta galdera haien hotsa ez da oraino ixildu gure baitan. Iñaki Segurola

Bere iritzia azaltzen nork hasi nahi zuen galdetuko ziguten eta, ez dakit berehala ala isiltasun-une **artegagarri** horietako baten ondoren, neu hasi omen nintzen hizketan. Xabier Mendiguren Elizegi

Gailur mortuan bakar-bakarrik nengoen, gain-gainean sentitzen zen zeru beltzaren azpian, trumoi burrunben eta tximista dirdaien ondoan, haize zakarraren menpe, zaparradako tanta lodiek bortizki bustia, ilunpe **artegagarrian** mehatxu egiten zidatela ziruditen ehundaka gurutzeren erdian. Juan Luis Zabala

Poliesterrezko traje zimurtuak (marroiak gehienetan), betaurreko lodi oskolezko erzdunak, buruan zahia beti, eta edozein eratako berriketa azalekoen kontrako higuin **artegagarri** bat. Oskar Arana

Berri pozgarria niretzat, baina bai **artegagarria** ere. Matías Múgica

Arraroa eta **artegagarria** pertsona txiki hura. Oskar Arana

Beteranoentzat, ulu **artegagarri** horiek eta isiltasun are **artegagarriagoa** gaua aurrera doan seinale baino ez dira. Julen Gabiria

Bietan, ordea, antzeman ditzakegu konpainiaren estiloa definitzen duten ezaugarriak: mugimenduaren muturreko araztasuna, eta leuntasun eta energiaren arteko elkarketa **artegagarria**. Berria - Kultura

---

artegatasun **1** *iz* urduritasuna.

Urduri samar nenbilen, eta, **artegatasun** hura guztiz normala zela pentsatzen banuen ere, horrek ez ninduen gehiegi lasaitu. Alberto Ladron Arana

Emakumea artega dabil, baina funtsean **artegatasun** hori aspalditik gelditu zaion arrasto ezerosoa baizik ez da, eguzkiak utzitako orbana antzo. Javi Cillero

Beste hainbat maleta, fardel, motxila eta lo-zaku lurrean barreiu utzita daude, eta haien inguruan neska-mutilak: geldi eta mutu batzuk, eztarria lotzen dien **artegatasuna** askatu ezinik. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezin zuen permititu **artegatasuna** euren artean nagusitzea, eta mataza bihurregia ez zedin bihur, auzia kontrolpean edukitzearen sentsazioa transmititu gura zuen. Josu Landa

Lehen ordutik sentitzen zen estresa, **artegatasuna** etxandi zahartu hartan. Iñaki Zabaleta

Ahaleginak egin behar izan nituen bat-batean harrapatu ninduen **artegatasuna** ez erakusteko. Aingeru Epaltza

Gozatu egiten genuen erregimenaren kontrako irakasleen **artegatasuna** ikusita. Anjel Lertxundi

-Kasu ematen ahal duzue, bada - **artegatasuna** irri bortxatu batez kukutu nuen-. Aingeru Epaltza

Erraza zen anonimatotik idaztea, eguneroko milaka bidaiarien arteko nahasketan boligrafoa hartu eta zerbait, agian barne nekearen eta **artegatasunaren** kanporanzko leherketa, edozein iragarkitako neska-mutil ederren ezpainetan jartzea. Iñaki Zabaleta

Bran leizearen parera iritsi zen, zuloaren aurre-aurrean jarri eta zaunka hasi zen **artegatasunez**, alde batera zein bestera saltotxoak eginez. Joanes Urkixo

Artegatasunezko tik bat, besterik gabe, hizketan hasi aurreko eztula edo beste edozein keinu mekaniko bezalakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Kasu bitxia da, Raimundo Silvaren gorputzeko atalen batean **artegatasunezko** seinale batek jotzen du, asaldura izango litzateke hitz aproposa. Jon Alonso

Ganbaran sarturik orduak eta orduak eman beharko nituen, han kanpoan zebilen aztoramenetik eta **artegatasunetik** libre, bai, baina argia ikusi barik. Edorta Jimenez

2 (izenondoekin)

Artegatasun arin hura zela eta bere buruari barre egiteko gogoa zuen, baina hustasun desatsegin baten sentipena gailendu zitzaion. Ibon Uribarri

Artegatasun urduri bat sartu zitzaidan hanketan. Josu Zabaleta

Senari jarraiki, sorbaldaren gainetik begiratu bat egin zion loti ederrari eta **artegatasun** urduri apurrik ere gabe hurbildu zitzaion isil-isilik. Mirentxu Larrañaga

Baina horra non etxera hurbildu ahala halako **artegatasun** berezi bat jabetzen zaidan. Josu Zabaleta

Honek **artegatasun** latza eta kezka handia eragin zion. Joxemari Iturralde

Etxera hurbildu ahala, halako **artegatasun** bitxi batek hartu ninduen. Josu Zabaleta

-Ez zakinat lotsa den... -eta **artegatasun** unadurazko bat saiatu nuen Ada irabazteko. Anjel Lertxundi

Hala eta guztiz, **artegatasun** ukitu batez zabaldu zuen atea, zarataren baten zain-edo. Fernando Morillo

---

artegatsu *izond/adlag* artegatasunez betea, urduritasunez betea.

Haren berdetasunak, luze-zabalean isurtzen zitzaion baretasunak, ukendu lanak egiten zizkion bere gogo **artegatsuari**. Joxemari Iturralde

Rekexo gero eta **artegatsuago** zegoen. Joxemari Iturralde

Brezo Espinalek **artegatsu** mugitzen zuen bere aulkia. Joxemari Iturralde

---

artegatu, artega(tu), artegatzen **1** da *ad* urduritu.

Baliteke -ni bezala, **artegatu** egingo zara- Auschwitzen aipatzen entzun zenuen leku horietako bat izatea, gaixoak ogiz eta eztiz elikatzen dituzten horietakoa, gero zatirik zati hesteak ateratzeko, jakintzaren alde, zientziaren onerako. Urtzi Urrutikoetxea

Kristo pittin bat **artegatu** zen. Koldo Biguri

Baina **artegatzen** ari da; nerbiosturik, itzuli eta erdi jauzi bat egiten du -hau kai-geltokia da, ezta?-. Jose Angel Irigaray

Eta, ez baitzen erraza sentimendu horiek agertzea, unean baino unean gehiago **artegatzen** eta hunkitzen zen. Patxi Zubizarreta

Sangarre ez zen batere **artegatu** Ivan Ogareffek galdera berriro ere errepikatu ziolako. Karlos Zabala

Nahiz eta bidaiagatik nahikoa nekatuta zegoen (Madrilgo aireportuan atzerapen-ordu luzeak tarteko), gaizki egin zuen lo, **artegaturik**. Josetxo Azkona

2 du *ad*

Enigmaren beste alderdi batzuek **artegatzen** dute Ryan. Juan Garzia

Galdetzen dio Einsteinek bere buruari, eta garai guztietako zientifikoak **artegatu** dituen galdera izan dela dio, nola den posible matematikak horren biribilki eta beteginki egokitzea errealitateko egite eta gertakariei, izanik matematikak esperientzia orotarik beregain den giza pentsamenduaren sorkari bat. Iñaki Segurola

Debekatua zuten ehizan zebiltzan bitartean beste ezerengatik, ezergatik ere, **artega** zitzaten. Josu Zabaleta

Gutxien espero zuena aurkitu zuen, eta istorio guztien ertz ilunetara eta bigarren planoko paperak jokatzera ohitua, erabat **artegatu** zuen, tupustean, bere burua zurrunbilo ilunaren erdian, historiako protagonista bihurturik ikusteak. Harkaitz Cano

Hori gutxi balitz, zubikoaz geroztik Rubenek luzatu dizkidan begirakuneak -eta isiluneak- are gehiago **artegatu** naute. Patxi Zubizarreta

-Joango al gara gora? -galdetu diot; betiere halako barne ximiko baten harrak **artegatzen** ninduelarik. Txillardegi

Bestalde, horixe bera zen ni aztoratzen, **artegatzen** ninduena, eta nire ziurtasuna nolabait ahultzen zuena: azken batean, zentzuz begiratuta, ezin nuen arrazoirik ikusi, ez nintzen gai zio onargarri, ezagun edo ulergarri txikiena aurkitzeko zergatik nengoen hemen eta ez beste nonbait. Urtzi Urrutikoetxea

Honorioren legeak heriotza-zigorra ezartzen zuen jaregin bat jopu gisa erosten edo **artegatzen** zuenari. Iñaki Iñurrieta

Neure egitekoak abandonatu izanak **artegatua** sartu nintzen hara, baina zerbitzariak mahaigaineratutako gosariak hobera bidean ninduen. Aingeru Epaltza

Haren hitz-urriak **artegatu** egiten ninduen. Joxe Austin Arrieta

Zuen ikaslea arrisku honetaz jabetzen bada, galdua dago, haren bihotza eta gorputza **artegatuak** geratuko dira betiko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

artegi *iz* artaldea gauez gordetzen den esparrua.

Etxe eta **artegi** guztietako estalgarri ageri ziren arbel beltzaireek are kutsu tristeagoa ere eransten zioten eskualdeari. Txillardegi

Zelaian txabola handi samar bat zegoen eta haren ondoan ardientzako **artegia**, txabola bera baino handiagoa. Aitor Arana

Ardien eta ahuntzen **artegiak** behar bezain handiak egin behar dira, alegia, abelburu bakoitzak izan dezala ez lau oin eta erdi baino gutxiagoko azalera, eta ezta sei oin baino handiagoa ere. Santiago Iruretagoiena

Orain gizaki eta abererik gabe, eremu bihurtua dagoen lurralde honetan, bertako hiri guztietan, ardiak biltzeko **artegiak** egingo dira berriro. Elizen arteko biblia

Gad eta Rubenen leinuetako gizonek esan zioten Moisesi: - **Artegiak** eraikiko ditugu hemen artaldeentzat eta hiriak familientzat. Elizen arteko biblia

Ardiak **artegira** eramateko ordua zela eta gu geunden lekutik ez ginela mugitzen ikusirik, zakurra bera hasi zen artaldea gordelekura zuzentzen. Aitor Arana

Guztira, 150 orrialdeko txostena da eta hitzaurrean argi eta garbi azaltzen dira asmoak: merkatuaren ekonomia soziala deitzen diote, otsoa **artegian**. Berria - Euskal Herria

Hiri-sarreran zeuden ardiak, bere lagun berri baten **artegian**. Xabier Aranburu

Artegian ez dago ardirik, ez eta ikuiluan ere abererik. Elizen arteko biblia

Artegian atetik barik, beste nonbaitetik sartzen dena lapurra da eta harraparia. Elizen arteko biblia

---

artegile *iz* arte ederren batean aritzen den pertsona. ik **artista**.

Artegileek beraiek ere hobeto erakutsiko lukete beren trebetasuna, ez diru asko izateagatik bakarrik baizik eta beren ofizioa ondo ezagutzeagatik ere ezagunak izango balira. Santiago Iruretagoiena

Gaindi ezazu orain **artegilearen** arima betiereko zenbakia begiztatu arte; orduan jakituriaren distirak joko zaitu, bere barne egoitzatik eta egiaren santutegi sakonetik abiatuta. Imanol Unzurrunzaga

Antzinakoak, lan handiak hartuz, arteetan trebetasunaren bidez frogatzen saiatzen zirena, hori orain koloreekin eta hauen itxura erakargarriarekin lortu nahi da, eta **artegilearen** fintasunak lanari ematen zion autoritate haren ordez, orain jaunaren diruz lortzen da hura faltan ez botatzea. Santiago Iruretagoiena

Meritu guzti hauei beste batzuk ere gaineratu behar zaizkie: Lizardi poeta ezagutarazi eta Oteiza **artegile** konplexu eta oparoa gogoratzearekin batera, Oteiza poeta errebindikatu izana. Berria - Harian

---

artegintza **1** *iz* artelanen sorkuntza.

Oteiza eta Chillidarentzat ere beren **artegintza** eginkizun sakramentala izan zen funtsean. Joseba Zulaika

Artegintza benetakoa zer den eta zer ez den erabaki ezinik ibiltzen naiz eroaren moduan. Hasier Etxeberria

Artegintza komertziala, saltzeko arte objektuak egiten dituen hori, galdu xamar dabilela esanen nuke. Hasier Etxeberria

Artegintza Garaikidearen Historiak ez du, baiki, N. jaun artistaren aurkikunde hori jasoko. Berria - Kultura

Esan liteke uniformizazioa nagusitu dela **artegintzaren** jardueran eta jada ez dagoela lekurik partikulartasunerako. Hasier Etxeberria

Ez dago, bada, zeraren zera guztiz orijinalik, ez **artegintzan** eta ez gainerako giza alorretan ere. Anjel Lertxundi

Kunderaren liburuen oso zalea izan nintzen ni ere, gure artean boladan zebilenean: 1985-1990 bitarte horretan; gaztetxoa nintzelako-edo, gehiago segitzen nion modari, jakin nahia izaten nuen zer zegoen indarrean, zein zen - **artegintzan** ere- bide zuzena. Xabier Mendiguren Elizegi

Zuri-beltzez egindako lehenbiziko margolanek barne-bulkada bortitzak adierazten zituzten: amorrua, beldurra, etsipena, aztoramena; **artegintzaren** ahalmenaren adierazgarri, ordea, kontrolpean zeuden sentipenok, arteak bai baitu indarra halako sentipen bete-betekoak agerian jarri eta, hala ere, bridaturik emateko. Xabier Olarra

Modulazio harmonikoa **artegintzarako** pentsatua dago, horregatik horren kantuak halako prestutasun aparta eta dotorea izaten du. Santiago Iruretagoiena

Lanean jardun beharrik ez zuen denbora hori gogoeta egiteko erabili zuen orduko eliteak, politikagintzarako eta **artegintzarako** prestatzeko. Berria - Gaiak

Artisauari zuk eman zenion gorputza; zuk arima, gorputzaren agintari; zuk gaia ere, zerbait egiteko; zuk **artegintzarako** asmamena, agerira zer atera barnean ikus dezan. Imanol Unzurrunzaga

2 (hitz elkartuetan)

Norbere burua azalduaz, norbere burua ez defendatuaz; ez **artegintza** lanak fabrikatuz, norberaren objektifikazioak, baizik eta norbera -norberaren pertsona- su lerroan jarrita. Joseba Zulaika

Aurtengo Uda Erakusketan, **artegintza** ekitaldi bat, Izuran, Jorge OTEIZAren obra batzuen ikusteko parada baduzue, egun guziz, aratsaldeko 2 etatik 7 ak arte. Herria

Haize Berri Kultur Etxeak, antolatzen duen Uda Erakusketa, **artegintza** erakusketa, iraganen da Uda hontan, artista ospetsu batekin: gaur euskal **artegintza** mailan den artista ezagutuena, Jorge OTEIZA. Herria

Jendeek prezia dezaten **artegintza** mailan egiten den lana, artista bat gomitatzen dugu obra bat egin dezan jendeen aintzinean, ohart diten zer nolako kalitateak izan behar diren, obra baten sortzeko. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
artegintza erakusketa (3)

---

artegiratze *iz* ardiak artegira eramatea.

Ni izan nintzen **artegiratze** jendetsu hartako galtzaile bakarra. Aingeru Epaltza

---

artegitxo *iz adkor* artegi xumea.

Eta ez da artzain on txarra, alafede, bere **artegitxo** unibertsalean ardi denak txuri-txuriak izatea lortzeko (batzuk beltzak badira, aski da pixka bat pintatzea), ingurua bete ardi gaizto ez-unibertsal kanpoan utziz. Joxe Azurmendi

---

artegune *iz* arte lanak edukitzeko edo gordetzeko gunea.

Mugarte **artegunea** Nazioarteko Zubiaren inguruan eraiki nahi du Udalak, Ficobatik gertu, eta Jorge Oteizaren lanaren inguruan **artegunea** ez ezik sormena eta dokumentazio zentroa ere izango litzateke. Berria - Kultura

Gasteizko alkateak atzo adierazi zuenez, espero du aurten egitea gaztetxea dagoen lursailean eraiki beharreko aparkalekuak eta **arteguneak** . Berria - Euskal Herria

---

arteino *adlag* arte, arteraino.

Senarrak begiak itxirik zin egin zuen bera bizi **arteino** alabak zainduko zituela, etxerik onenetara ezkonduko zituela, eta izandako lehen bilobari Lidia izena jarriko ziotela, neska bazen. Felipe Juaristi

Eta zeren zinez baitzeukan bere baitan erroturik Asiskoaren spiritua, etsenpluarekin predikatzerat zeramana, eta zeren hura ez baitzen berea erdiets **arteino** baratzen, halakoak ere baitziren haren perseberantzia eta fermutasuna...! Joan Mari Irigoien

Pedro Huizi azken ukituak emaiten ari zitzaion santa Klararen erretratuari, han bere studioan, osabaren dorretxean, zeren eta Pedro ez baitzen artean osabarekin etsaitu, nahiz eta haien arteko harremanek okerrera egin zuten orduko... eta are okerragora eginen zuten handik gutirat, haiek hautsi eta eten **arteino** , Ubarnekoa, santa Klararen erretratuaren ondotik, kaperako freskoaren lanetan murgildu zenean. Joan Mari Irigoien

Beroak bota behar eta, egarria ezin asez, pitarretik egiten nuen enpo, barrenak ondatu eta kakeritu **arteino** . Patziku Perurena

Argitan eta epelean, argizariko letrak desitxuratzen joango dira, izkribu guztia ezabatu **arteino** ... Anjel Lertxundi

---

arteka[1] *iz* bi etxeren, hormen, haitzen edo kidekoren arteko tartea. ik**etxarte**.

Zerbait arrabots bazenean, so luze bat atearen **arteka** batetik, eta gertakari ttipi batzuren lekuko nintzen, sartzeak eta ateratzeak S.S. bat lagun. Marzel Etxehandi

Itxura biribil hori lortzen da izai adar lodienak gurutzatuz, gero izai adar meheagoak, eta azkenik adar hostodunez **arteka** guziak betez. Aurelia Arkotxa

Mireiaren gutiziak bezala, haren gorputzaren bazter eta **arteka** guztiak ere ezagutzen ditudala atera zait. Patxi Zubizarreta

Eguzki zirrintek begi-begietan kausitu ninduten, pertsiana erdi usteldueta ko **arteka** ugarietatik. Aingeru Epaltza

Etxearen eta hangarraren **arteka** hertsian, gizonak eta haurrak taldean eleka ikusten zituen, baina ez zuen hargatik ametsetako lukainkak zenbatzeko astirik galdu. Itxaro Borda

Zabalik zegoen eta ixteari ekin zion, harik eta kanpora begiratzeko **arteka** estu bat utzi zuen arte. Patxi Zubizarreta

Beinatek zinez maite zuen arrats apaletan, eguzkiak gorritzen zituen mendi **arteka** gordeetan gauerako borobilean kuzkurtzen zirenean Georgesekin hitz egitea. Itxaro Borda

Irriak eta trufak izan ziren herrian fama barreiatu zelarik, Ermitak basoilar kolpatu bat harroka **arteka** batean atzeman zuela. Michel Oronoz

2 *erdiko arteka* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Erdiko arteka (antzina "Rolandoren arteka") goi-mailako ugaztunen garunak goi aldean duen zirriztu bat da. ETC-entziklopedia

Horregatik, atzetik aurrerako erradiografian eskuineko **erdiko arteka** ikus daiteke, zeinak goiko gingila eta erdikoa bereizten baititu, erdiko atala zeharkatzen duen lerro horizontal mehe gisa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erdiko arteka sakonune handi-handia da, eta lobulu frontala eta lobulu parietala (bestea baino txikiagoa eta haren atzean dagoena) bereizten ditu. ETC-literatura, saiakera

3 *hemisferioarteko arteka* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hemisferioarteko arteka garuna euren artean gorputz kailukararen bidez elkartutako bi garun-hemisferio hemisferiotan luzetara banatzen duen arteka sakon bat da. ETC-entziklopedia

4 *kalkarinar arteka* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Kalkarinar arteka garunaren kanpo kortexean dauden arteka ugarietako bat da, garun hemisferio bakoitzaren barne aurpegiko atzealdeko zatian dagoena, ibilbide horizontal bat jarraituz, parieto-okzipital artekarekin bat egin arte (garun hemisferioaren barnealdeko aurpegitik). ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arteketatik begira (3)

---

arteka[2] 1 *adlag* artetan, tarteka.

Iragarkiak Haranbeltzera buruz eskaini keinua alegia ez ikusia eginik, Izurari agur bat bakarrik bidetik eskaini diot, parean iragan ondoan, zeren ageri zaizkit, hantxe, Garaziko gain haietan, laino beltz eta pisuak, elur xuri peza batzuk **arteka** erakustera utziz. Piarres Aintziart

Arteka gizona gelditu egiten da, xuxurlatu kantaz pentsakor, oroitu nahian edo. Jose Angel Irigaray

Man-en larru beroak Graxirena farrastatzen zuenean, uste zuen larrazkeneko zein udaberriko lantzerra hasten zela, euri malko xehe eta finez bazterrak astinduz, **arteka** bedera amultsuki urez emokatuz, idorte mehatxuari arre ozenka. Itxaro Borda

Arteka , emakumea "Urzo xuria" kanta hasten da berriz xuxurlatzen, amiño bat biziago. Jose Angel Irigaray

Arteka solasari lotu gituzu, bidaiari buruz; **arteka** isiltasunean, nor bere burutazioetan. Jose Angel Irigaray

Landan barna eta, elkarri beha **arteka** . Jose Angel Irigaray

2 *arteka-marteka*

Protesi horrekin agertzen zaizkigu hitz bikoitz asko: aiko-maiko, aitzaki-maitzaki, akuilu-makuilu, angula-mangula, **arteka-marteka**, autu-mautu, auzi-mauzi, ele-mele, erdi-merdi, erran-merran, ika-mika, inguru-minguru, intziri-mintziri, iritzi-miritzi, irri eta mirri, isil-misil, itsu-mitsuka, itzuli-mitzuli, izkutu-mizkutu, oihu-mohiuka, oldez eta moldez [...]. Iñaki Arranz

---

artekaketa *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* artekak edo kanalak egitea; kanalizazioa.

Ortzibiaren ustez, pistaren **artekaketak** hegazkin berriak Gipuzkoan lurreratzeko aukerak zabaltzen ditu. ETC-prentsa

Makina honek nagusiki, **artekaketa** -lanak egitea ahalbidetzen du, profil edo arteka forma ezberdinekin. ETC-entziklopedia

Eragiketa ohikoenak zilindraketa, aurpegiketa, **artekaketa** eta mandrinaketa dira. ETC-entziklopedia

---

artekari 1 *iz* tramite edo kideko batean ararteko lana egiten duena.

Bi eratako zergak daudela esan daiteke: zuzenekoak, Ogasunari zuzenean ordaintzen zaizkionak, eta zeharkakoak, **artekari** baten bidez ordaintzen direnak. Iñaki Heras

2 *aseguru artekari (corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Oro har, izaki behartsu eta inutilak gara, hortaz behar ditugu ezkontza paratzaileak, dibortzio aholkulariak, **aseguru artekariak**, dibertsioaren profesionalak, ehorzketa prestatzaileak eta abar. ETC-prentsa

Aseguru artekari lanetan aritzeko baimena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Asegurua sinatzerakoan Barryk **aseguru-artekariari** garbi esan ziola ziurtatzen du Maryk, baina artekariak ez zuen oharretan adierazi, antza. ETC-literatura, saiakera

3 *merkataritza-artekari*

Sarriegiri buruz ezagutzen dena, batez ere, bere alderdi konposatzailea da, baina inor gutxik daki **merkataritza artekari** izan zela. Berria - Kultura

---

artekaritza *iz* artekariaren jarduna eta lanbidea.

Lerro gutxi ziren: uharte desolatu batean bizi ziren lau ezezagunentzat lau emakume inguratzeko, zilarbizi guztia eman behar izan zuela, eta ez zitzaiola ezer sobratu **artekaritzaren** saritzat. Juan Garzia

Europako Batasunak bake **artekaritza** egin ondoren, Jugoslavia erretiratu egin zen. Berria - Mundua

XVII. mendearen erdian pertzepzio-arloaren, hizkuntza kodearen, **artekaritza** instrumentalaren eta informazioaren arteko harremana, bizidunei buruzko diskurtsoan erabilitakoa, aldatua izan zen Historia naturalaren objektuak definitzea baimenduz. Xabier Arregi

Aurtengo otsailean berriz hasi dira negoziazioak Norvegiaren **artekaritzaren** bidez. Berria - Mundua

Denbora luzez etenda egon da negoziazioa eta gatazkari irtenbide bat bilatzeko SIMA **artekaritza** zerbitzuak proposamen bat mahaigaineratu zuen. Berria - Ekonomia

Bahitzaileek igandeko 13:00etarako finkatua zuten ultimatuma luzatu dela jakinarazi zuen atzo **artekaritza** lanetan diharduen batek, Mezher Dulaimi sunita leinuburuak. Berria - Mundua

Arazo hori bideratzeko, lurren **artekaritza** zentro bat sortuko da. Berria - Ekonomia

---

artekatu, arteka(tu), artekatzen du/da *ad* tartekatu.

-Egia da - **artekatu** zuen bigarrenak-, borroka armatuan dabilenak birikak garbi atxikitzen dituela. Itxaro Borda

Bizi behar du gizonak, ez? - **artekatu** nion, izpirituz zabal, oroituz aitarekin axuri merkatura ostiraletan joatean, prezio urriegiarengatik salgai ez zitezkeen axuriak etxera ekartzen genituela, marrakari eta usaintsu-. Itxaro Borda

-Aipatzeak ere ez du balio -Graxik motz **artekatu** zuen, baso bila eta kopetan behera, kanpoko beroa zein ezkaratzeko tepoagatik, isurtzen zitzaion izerdia lehortzen saiatzen zela. Itxaro Borda

-Flaubertek zion bezala, **artekatu** zen Fanch, zure hutsa Mary, derrigorrez trenkatu nahian datza. Itxaro Borda

Hauek izan dira Xarloren hitzak, bihotz tingadura batzuez **artekaturik**, atera ahal dituenak. Herria

Tente du isatsa, zedroa bezala, **artekaturik** ditu hanketako tendoiak. Elizen arteko biblia

Itzuli eta beraiengana hurbildu zenean, Frodo ohartu zen Gandalfek eskuan -eta orain agerian gainera- Hirugarren Eraztuna zeramala, Narya Handia, eta bertan **artekatutako** harria sua bezain gorria zen. Agustin Otsoa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artekatu zion** (4); **artekatu zuen** (5)

---

arteketa *iz ipar* tartea.

Gizona, begirakunea leihoaren **arteketan** josia, luze gabe agertu zen kalezulo barrenean. Patxi Zubizarreta

Anitz oroit dira hor mutxikoak emanik, aparkatu autoek libre uzten zituzten **arteketan**, Herriko Etxeak bulta bat eman zuen besten kari plazaren huts arazteko. Herria

Kurtso eta ikerketen **arteketan** sartzen nituen apez lanak. Piarres Aintziart

Ene lagunak ikusten ditut oraino, ahoz behera, entseatzen dira bagoiaren **arteketan** den uraren edatera, izanik ere hilen gorputzak kutsatua. Michel Oronoz

Han egon ziren kokoriko, biltegiaren zoladurako **arteketarik** pasatzen zen kea jasanez, eta arnasketa geldituz beren buru gainean bozak edo urratsak entzuten zituzten bakoitzean. Elena Touyarou

Kantaldi berezia eskaini zuten atzo Isturitzeko harpeetan, gisuzko estalaktita eta estalagmiten **arteketatik**. Berria - Kultura

Atsegin hartzen baitzuen haien arteko solasaldiak entzuten, edota, atearen **arteketatik** begira, emazteak senarra etengabe nola jipoitzen zuen ikusten. Patxi Zubizarreta

Leihoak artean itxirik, eguzkia **arteketatik** barneratzen zen, gelara halako klartasun lausoa zabalduz. Patxi Zubizarreta

Kafera ematen zuen leihoaren **arteketatik** begira egon zen, zutik, zelatan, mutila noiz etorriko. Patxi Zubizarreta

---

arteki *iz ipar* zerriaren erdialdeko xingarra.

Janariaren aldetik, astezken arratsetik haste eta igande arratsa arte, Cordeliers karrikako 16 ean daizke buraso guziak, aratseko 7 etarik haste betiko talo goxoen prestatzeko, gasna, **arteki** eta ere xokoletarekin, gustu guzientzat beraz. Herria

16 orenetan Etxauzko parkean ikusiko dira lehengo lan, ofizio eta tresnak; horietan baporezko ogi joiteko bat, harotz eta harginak lanean ari, ardi moxtea, gasna egitea, katalanbroxa eta bixkotx egitea, taloak **artekiarekin** eta marrakukiak. Janaria ospakizunari zoakion heinekoa izan zen: oilo salda arroltze gorringo eta ogi xigortuekin, amuarrainak **artekiz** troxaturik, kapoiak errerik, sagar erreximeta gasnarekin, hori guzia sagarnoz eta arnoz lagundurik. Herria

Alain Darozes sukaldari famatuak burutzen zuen epai mahaia; hona nola ingura lezakeen biper moleta on bat: biperra eta arraultzekin batera **artekia** finki xehatua eman barnera, tipula eta baratxuria, ogi xigortua. Herria

Ontzitara bat esne beroarazi zion, bezperako ogi zerra zenbait xigortu eta **arteki** xafla frijitu berriak amultsuki hedatu ogi zerren gainean. Elena Touyarou

arteko *(ETCn **321.964** agerraldi)* **1** *izlag* bitartekoa, erdikoa; nolakotasunen bati buruz beste batzuen artean dagoena. ik **bitarteko**; **erdi**[1].

Jeneralean, ordea, gaian aditu direnen **arteko** eztabaida eta foroetan bakarrik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Azken batean, ekonomia eta bere testuinguru sozialaren **arteko** dibortzioaz ari dira ikasleak, ekonomia politikoa deitzen den hori aintzat hartzearen garrantziaz. Iñaki Heras

Ez du hotz haundirik egiten, eta gero, terren-terren... beti bien **arteko** aro batekin... Menane Oxandabaratz

Alde batetik, galdekatzaileak, eta, bestetik, galdekatua; estrategia biren **arteko** tirabiraren kontakizuna, azken batean; irakurlea harrapatzen duena, zer gertatuko, datorrenaren jakin-minez. Rafa Egiguren

Seguruenik, paradigma-aldaketa kontzeptua izan dezakegu egokienetakoa, baldin eta gaurko geure munduaren eta Ignazioren munduaren **arteko** alde, tarte eta jauzi handia hobetu ulertu nahi badugu. Patxi Altuna

Bazeuden eskualde hartan beste lauzpabost jauretxe dotore, ez askoz gehiago, hondar-muino idorren **arteko** belargune zekenetan nabarmen. Txillardegi

Egokitze-saio horiek ez ziren inoiz errazak izan, eta leialtasun filologiko-historikoaren eta arkitektura modernoak zituen premien **arteko** tentsioaren markarekin azalduko ziren beti. Santiago Iruretagoiena

Venezuelan daude guk jaso eta ezagutu dugun Euskal Herri honen izaera berezia modelatzen eta biribiltzen lagundu zuten askoren **arteko** batzuk. Pako Aristi

Pablo ia denen ezaguna zen igeltsero profesional baten izena zen, azken garai horietan, gure **arteko** elkarrizketetan, futbolzaleen artean Clemente edo eskultoreen artean Oteiza baino gehiago ateratzen zena. Jon Alonso

Azken asteotan bien **arteko** komunikazioak aurrerapauso nabarmenak eman ditu. Lutxo Egia

Antzinakoen merkataritzaren eta gaur egungoaren **arteko** alde nagusia Iñaki Iñurrieta

Basamortuaren erdian zegoen, Iraken eta Arabia Saudiren **arteko** hegoaldeko mugan. Juan Kruz Igerabide

Beren **artekoaren** hasiera nola-halakoa izan arren, zorte ona izan dute, biek ala biek: berak emakume hori aurkitu duelako, eta emakumeak bera aurkitu duelako. Oskar Arana

Aspaldian elkartu ez diren ikaskide zaharren **arteko** enkontru errepikatu ditugu, bat bera ere ahaztu gabe. Iban Zaldua

Handik pare bat urtera alargun haren alabarekin, Pilirekin ezkondu izanak ez zuen, egia esatera, batere samurtu gure **arteko** harreman lehenbiziko egunetik aski gogortua. Josetxo Azkona

Ur xirripen ondoko arratoiak ditu harrapatuko; berdin harkaitzen **arteko** erbia edo mendiko eper zango gorria. Filipe Bidart

Ardo gehitxo edaten duenean (hortik dator intelektoa garaztatzearena), sarrerako liburuetatik hasi eta egongelara **artekoen** argumentua kontatzen hasten ez zait ba! Unai Iturriaga

Abereen **arteko** batek ere ez du, oraingoz behintzat, H bonbarik asmatu, ez eta, nire txostenen arabera, uranio-hobirik (depósito de uranio, jatorrizkoan) inon idoro. Edorta Jimenez

Baina alferrikakoak diruditen ahalmen horiek fintasun handia eskaintzen dute musika entzuterakoan eta balioesterakoan: hain handia ere, ezen gela bete tresna elektroniko behar baita belarriaren eta garunaren **arteko** konbinazioaren ahalmen guztiak ustiatzeko. Irene Aldasoro

-Ekarpen handiak egin ditu, hiztegia finkatzen, tradizioaren eta modernitatearen **arteko** zubia egiten. Pello Zabala

Tellagorri Galtxagorrien familiakoa zen, eta familiaren ezizenaren eta bere izenaren **arteko** hoskidetasun horrek umeek ere bazekiten eta Tellagorriri min handia ematen zion kanta bat asmatzeko balio izan zion seroraren aitari, Tellagorriri gorroto zion agure xelebre bat. Koro Navarro

Gure **arteko** azken banaketa da. Felipe Juaristi

Laster izan zen zaharren eta gazteen **arteko** halako lehia bat, eta ez bakarrik pilotaren gatik: ahopaldi, ele bero, gaizto, eztabaida, ez zen deusen eskasik halako kalda batean Eskual Herriko plazen atxikitzeko, aldekoak eta kontrakoak bazituztela batzuek eta besteek, eta pariatzaileak ez ziren azken inpizta-emaileak. Michel Oronoz

-Hori libertarioon **arteko** araua da. Inazio Mujika Iraola

Hemezortzi urte bete berriak zituen armadara galdegina izan zelarik, Frantzia eta Alemaniaren **arteko** mugara. Eneko Bidegain

Herria handitzeaz batera orainaldi eta lehenaldiaren **arteko** tartea ere handitu egin zait. Javi Cillero

Kanpoaldeko hotel diskreto batera eraman ninduen, eta gure **artekoa** aspergarri samarra izan zen; irudimenik gabeko gizona zen, bere emazte santarekin bezalatsu jotzen zuen larrua nirekin. Juan Martin Elexpuru

Txikiak gara, gure artifizio literarioak edonork kolokan jartzeko adina, baina bedeinkatua bedi txikitasun hau, idatzitakoaren eta bizitzaren **arteko** aldea ia ezerezera murriztera behartzen gaituelako. Pako Aristi

Laburrenik, bada, esan dezadan konpromiso askoren **arteko** oreka nolabaitekoan bide egiten saiatu naizela. Juan Garzia

Guztia ere esango nuke, baina eszena hasiera etzanen eta kako **arteko** esaldi batzuen forma ez nuke laudatzeke utzi nahi. Xabier Paya

Orain **arteko** kapituluak asko gustatu zaizkiola esan dit Xabik, eta gainera pistaren kontuak erraztu egiten du idaztearen abentura. Xabier Etxabe

Usadioaren eta sormenaren **arteko** oreka horretan ibiltzea da bertsolariaren lana. Andoni Egaña

Haien **arteko** joan-etorri etengabean eta oreka zailean ibili zen beti. Jose Morales

Jokoa izan da orain **arteko** guztia. Alberto Barandiaren

Euskal poetarik finenetako batek ere, Mikel Lasak, alegia, euskarazko "dana"ren eta gaztelaniazko "nada"ren **arteko** simetria zora (bia) garriaz errematatzen du bere poema ezagunenetako bat. Joxerra Garzia

Patxi Iruittek, gure attitte zenak, Agido eta Larraskanda **arteko** zuloan behera galdu ditu begiak. Iñigo Aranbarri

Gure egutegi partikularrean, berriz, zelten **arteko** egutegi zuhaitzekiko bitxi horretan, basa-lizarraren sasoian gabiltza, basa-lizarra da aldi honetako zuhaitza, bere hilean gaude, hurrengo 16a burutzen den arte. Pello Zabala

Hiru egun lehenago abiatu zen Belemetik; Jainkoak daki ez zuela, ba, gutxitan egina Brasilgo itsasertzen eta Europakoen **arteko** bide hura. Jon Muñoz

Ez zuten esaten beren **arteko** gehienek dirua jasotzen zutela zuzenean bezeroengandik, berentzat jaso jakina. Joxan Elosegi

Egia erran ene egoeran, gizonen eta emazteen **arteko** atxikimendu itsua, amodioa deitzen zena, nekez uler nezakeen. Itxaro Borda

Hain zuzen ere, errealitatearen eta ametsen **arteko** gatazka dugu Gogolen obraren gai nagusietako bat. Jose Morales

Ia hogei urtez Daviden eta Goliaten **arteko** borroka izan da Itoizko urtegiaren kontrakoa. Edurne Elizondo

-Zenbat aldiz ikusi duzu "Haizeak eramana"? -galdetu zion amak amonari, nire eta aitaren **arteko** elkarrizketa labur hari kontu eginik badaezpada ere. Jon Muñoz

2 *batezbestekoen arteko erlazio* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Batezbestekoen arteko erlazioa . ETC-entziklopedia

3 *bizi arteko* *(orobat **biziarteko**)*

Estatuak emandako **bizi arteko** pentsioak izaten zituzten. nazioarteko legedia **bizi arteko** espetxe zigorrari mugak jartzen saiatzen ari da. Santiago Iruretagoiena

Bizi arteko espetxealdiak indarra hartu du, ondorioz. Berria - Euskal Herria

Defentsak dio soilik **bizi arteko** kartzela edota heriotza zigorraren aukera eman diotela hari, eta horregatik hautatu duela errudun gisa agertzea. Berria - Harian

Andre hori xume-xume bizi zen, errenta txiki **bizi arteko** batekin, eta neskatila potolo polit bat zeukan berarekin. Karlos Zabala

Gizon batek betiko zeukan lur bat feudo bihurtzen bazuen, feudo hori ezin zen **bizi artekoa** izan. Iñaki Iñurrieta

Horrek hauxe besterik ez du frogatzen, garai hartan onura gehienak **bizi artekoak** zirela. Iñaki Iñurrieta

4 *bokal arteko* *(orobat **bokalarteko** g.er.)* *izlag* bokalen artekoa.

Har dezagun, adibidez, euskaraz ohiko den **bokal arteko** /d/ unitatearen kenketa eta analiza dezagun "eman beharko didazu" esaldiaren *emambearkoiasu* ahoskera. Lourdes Oñederra

Bokal arteko hasperen hori ahoskatzeko ez da horrenbeste aire behar. Lourdes Oñederra

Halere, **bokal arteko** s-ak bere hartan iraun du bokalez amaitzen ziren aditz guztien geroaldian eta aoristoan. Euskalki guztietan sarri galtzen dira **bokalarteko** kontsonante

batzuk lagunarteko hizkera lasaian: *b, d, g* eta *r* dira kontsonante horiek. Isabel Arrigain

5 *izar arteko espazio* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Eguzki haizeak, Eguzkiaren goi-atmosferatik kargatutako isuriak, burbuila itxurako gune bat sortzen du **izar-arteko espazioan**. Espazio honi heliosfera izena ematen zio. ETC-entziklopedia

Izar-arteko espazioaren hotza, izozte-puntutik milaka gradu beheragokoa edo Fahrenheit, Celsius nahiz Réaumur eskalen araberako zero absolutua: hurbil zen egunsentiaren lehen aieruak. ETC-literatura, saiakera

Horrek esan nahi du Voyager 1 **izar arteko espaziotik** hurbil dagoela. ETC-prentsa

Gizakiak bidalitako lehenengo objektua izango da **izar arteko espazioan** sartzen, noiz gertatuko den ez dakiten arren. ETC-prentsa

(Nahiko) ugari agertzen da zenbait ingurunetan, hala nola suaren berotan eta **izar arteko espazio** hotzean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erreinuaren eskualde horiek itsasotik altxatuko badira, ezinbestekoa da izarretatik urrun - **izar-arteko espazioaren** baretasun mehatxuz josian- gertatzen diren prozesu batzuen bultzada. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *kontinente arteko* *(orobat **kontinentearteko** g.er.)*

Tarcila Rivera Liman egin diren Emakume Indigenen **Kontinente** arteko Topaketetako antolatzaila da. Berria - Gaiak

Europako edo Ipar Afrikako aireportuak helburu dutenak, berriz, hiru euro garestituko dira, eta 12 euro **kontinente** artekoak. Berria - Ekonomia

Kontinente arteko ibilbide luzeetarako. **Kontinente** Arteko Kopa jokatuko dute bihar Once Caldas eta Portok. Berria - Kirola

Hiru Liga eta **Kontinentearteko** Kopa bat. Berria - Kirola

7 *kuartil arteko ibiltarte* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Dagokion sakabanatze neurri erlatiboa, datu-multzo ezberdinen sakabanatzeak erkatzeko, **kuartil arteko ibiltarte** erlatiboa da. ETC-entziklopedia

Kuartil arteko ibiltarte-erdia lehenengo eta hirugarren kuartilen batezbestekoa da. Hiruko batezbestekoa lau datuen batezbestekoa da: lehenengo eta hirugarren kuartilak eta, bi aldiz, mediana. ETC-entziklopedia

8 *kuartil arteko ibiltarte erlatibo* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Estatistikan, **kuartil arteko ibiltarte erlatiboa** kuartil arteko ibiltartetik eratortzen den sakabanatze neurri erlatiboa da. ETC-entziklopedia

9 *lanbide arteko* *(orobat **lanbidearteko**)* *izlag*

Lanbide arteko akordioak. Joxerra Garzia

54 eta 55 milioi hektolitro biltzea pentsatzen du Arnoaren **Lanbide Arteko** Frantziako bulegoak. Berria - Harian

Aurki hasiko ditu bere lanak Errioxako Ardoaren **Lanbide arteko** Erakundeak. Berria - Ekonomia

Lanbide arteko soldata mixerable hori ez dagoela %2a baino gehiago handitzerik. Joxerra Garzia

Lanbidearteko Gutxieneko Soldata 600 eurora igoko duela. Berria - Ekonomia

Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino gutxiago irabazten dutenek Alargunen pentsioak **Lanbide** arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) parekatuko dituzten ordainsariak.

Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren %6,6ko igoera. Joxerra Garzia

10 *lanbide arteko gutxieneko soldata*

Alargunen pentsioak **Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin** (LGS) parekatuko dituzten ordainsariak ematen hasi zen ostiralean Nafarroako Foru Ogasuna. Berria - Ekonomia

Erdiei bakarrik pagatzen diete **lanbide arteko gutxieneko soldata**. Berria - Ekonomia

Nafarroako alargunei gutxienez **Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata** ematen dien legegaia onartu zuen atzo Nafarroako Gobernuak. Berria - Ekonomia

11 *multzoen arteko eragiketa* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *pl*

Multzoak eta **multzoen arteko eragiketak** Venn-en diagramen bidez irudika daitezke. ETC-entziklopedia

12 *ordu arteko* *(**150** agerraldi, **49** liburu eta **27** artikulutan; orobat **orduarteko** g.er.)* *izlag*

Martinek mantsoago hitz egin zuen, **ordu arteko** bizitasunik gabe. Bernardo Atxaga

Ordu arteko nire munduan erraza gertatu zitzaidan banaketa egitea: gaizkiaren eta ongiaren arteko lehian, aski zen erabakitzea zein zelaitan zegoen ongia. Anjel Lertxundi

Ordu arteko frantses euskaldunak eta españolak, ordutik aurrera herri bakar bateko iparraldeko eta hegoaldeko bizilaguntzat hartu ziren. Koldo Zuazo

Bitxi zitzaidan **ordu arteko** kideekin tiroka aritu beharra. Inazio Mujika Iraola

Beti heltzen duk olaturen bat **ordu arteko** indartsuenak utzitako arrastoa desegitera. Anjel Lertxundi

Nietzschek **ordu arteko** balioak ordezkatu nahi ditu, moralitate berri bat gauzatze aldera. Askoren artean

Erantzunak, azkenez, zorionez, ezabatu egin zuen **ordu arteko** tonu maior nekagarria. Bernardo Atxaga

Orduarteko zalantzek, ezbai alferrikakoek paradoxalki egoera tinko batean itzatua ninduten. Piarres Aintziart

Ekuazio aljebraikoen ebazpenei berriz ere erasoa jo aurretik, **ordu artekoa** laburbiltzeko premia izan zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Baina, bizargin baten emaztearen bizimoldea **ordu artekoa** baino hobea izango ote zen? Patxi Zubizarreta

13 *ordura arteko* *(**200** agerraldi, **61** liburu eta **71** artikulutan)* *izlag*

Dirua, **ordura arteko** nekazari-munduan ez zuen garrantzia ari zen hartzen komunen ingurunean. Askoren artean

Ordutik hona, haren egintzak, **ordura arteko** gaitzak menderaturik, beraren egoera hori ezerezten dio eta ordaindu beharreko kalte handiak ere egiten. Andres Urrutia

-Hara! lehengoan ikusi nuen aurpegia! -bota zuen Carmenek, **ordura arteko** haria etenda. Iñaki Iñurrieta

Ikerketa **ordura arteko** parametro teorikoen barnean abiarazi genuen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez zen gauza **ordura arteko** martxari eusteko. Txillardegi

Edozein unetan da posible, **ordura arteko** ezagueraren arabera, arrastoa ateratzea zer gerta daitekeen handik, demagun, bost urtera. Juan Garzia

Sendatua nintzen, bada, eta astia izan nuen **ordura artekoak** mamitzeko, banuen-eta zer mamitu. Edorta Jimenez

Ordura artekoan, saia zaitez egoera gainditzen. Itziar Otegi

14 *orno arteko disko* *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Orno arteko diskoa bizkarrezurraren orno zerbikal (C1-C7), orno toraziko (T1-T12) eta orno lunbar (L1-L5)-en arteko egitura kartilaginotsua da. ETC-entziklopedia

Adibidez, **orno arteko diskoetan** Annulus fibrosus izenez ezagutzen da nukleoa inguratzen duen zuntzezko osagaia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Orno arteko diskoen degenerazio-deshidratazio progresiboaren ondorioz altuera galera gertatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

15 *pertsonen arteko harreman*

Izpirituaren moldatzalea eta oso konkretua izanez **pertsonen arteko harremanak** azkarki joiten ditu. Herria

-Badakit, Luisa, leku hauek basatiak egiten zaizkit, ezatseginak, **pertsonen arteko harremanak** hondatu egiten dituztela iruditzen zait! Pako Aristi

Kawabatak bere lanetan Japonia zaharra aurkezten digu neurri handi batean, Japonia zaharraren edertasuna islatu nahi du, horri lotzen zaion izaera jakin bat, baina garaiko gizarte arazoak ia ez dira agertzen eta **pertsonen arteko harremanek** osatzen dute bere lanen mamia. Ibon Uribarri

Sendi bereko **pertsonen arteko harremanek** jakin-mina piztu didate, mikrokosmos interesgarria da. Berria - Kultura

Ez zaizkit askorik interesatzen **pertsonen arteko harreman** korapilatsuak lantzen dituzten nobelak, ezin izaten bainaiz oroitu gertaeren hariaz. Xabier Olarra

Baina zu behingoz ikasi beharrean zaude pertsonak ez dituztela hitzek, zinek eta promesek bakarrik lotzen; are gehiago, **pertsonen arteko harremanetan** ez dutela sentimenduek eta begikotasunek agintzen. Ander Irizar

Sexu bereko **pertsonen arteko harremanak** legez arautzea ontzat jo zuten atzo Txekiako Senatuan. Berria - Gaiak

Horrelako proposamenek beste pertsona batzuk errespetatzeko eta **pertsonen arteko harremanetan** errespetatzen irakasteko helburua dute. Berria - Euskal Herria

Handik aurrera, **pertsonen arteko harremanen** inguruan aritu ginen gehienbat. Rafa Egiguren

Hala ere, inoiz ez zait gehiegi gustatu telefonoz jardute hori; nahiz eta gure lanbidean etengabean telefonoz hizketan aritu, beti iruditu zait ekintza hotza, mezua eman bai baina **pertsonen arteko harremana** galarazten duena; eta niri, kasu hartan, harremana interesatzen zitzaidan mezua baino gehiago. Xabier Mendiguren Elizegi

Fidel izan beharraz gertaerak eta **pertsonen arteko harremanak** katramilatzen eta korapilatzen doazen komedia -edo melodrama baten parodia- bat da, barregarria eta serioa aldi berean; divertimento arin bat kanpotik, gizartearen kritika zorrotz sakona barrutik. Antton Olano

16 *saihets arteko arteria* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Saihets arteko arteria saihetsarteko espazio edo tarteak garaztatzen dituzten arterietako bakoitza da. Aurrealdean bederatzi bikote daude batetik (goiko eta beheko adarra bikote bakoitzean) eta goiko saihetsarteko arteria edo gorena bestetik. Atzealdean, ordea hamaika bikote simetriko dira. ETC-entziklopedia

Bereziki ikusmen-nerbioan, begi barruan esklera aurrean kokatzen den zatia (Pars prelaminaris nervus optici intraocularis), baita atzeko **saihets arteko arteriaren** bizkar-adarretatik ornomuinera. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *sasoi arteko*

Gona motz batek, **sasoi arteko** jakak eta soinari itsatsitako jertse meheak areagotzen zioten gorputzaren lerdentasuna. Migel Angel Mintegi

Jendearen arropetan nabari zen, zirak, **sasoi arteko** zamarrak, andreen kapelak. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 25 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abertzaleen arteko** (104); **alaben arteko** (31); **aldeen arteko** (84); **alderdien arteko elkarrizketa** (44); **anaien arteko** (36);arteko adostasuna (49); **arteko akordio** (31); **arteko alde** (41); **arteko auzia** (33); **arteko bake** (27); **arteko banaketa** (29); **arteko batasuna** (65); **arteko berdintasuna** (73); **arteko bereizketa** (110); **arteko beste** (36); **arteko bi** (35); **arteko bidea** (92); **arteko bidean** (30); **arteko bilera** (47); **arteko bitartekari** (27); **arteko borroka** (146); **arteko borrokak** (86); **arteko borrokan** (26); **arteko borroketan** (62); **arteko denbora** (38); **arteko desadostasunak** (29); **arteko desberdintasun** (44); **arteko desberdintasuna** (65); **arteko desberdintasunak** (45); **arteko desoreka** (26); **arteko diferentzia** (45); **arteko distantzia** (33); **arteko elkar** (38); **arteko elkarlana** (133); **arteko elkarrizketa** (221); **arteko elkarrizketak** (65); **arteko elkartasuna** (50); **arteko epea** (101); **arteko epea eman** (28); **arteko erlazio** (38); **arteko erlazioa** (71); **arteko erlazioak** (34); **arteko errepidean** (25); **arteko espetxe** (32); **arteko ezberdintasuna** (31); **arteko ezberdintasunak** (38); **arteko ezkontza** (62); **arteko ezkontzak** (65); **arteko eztabaida** (94); **arteko gatazka** (104); **arteko gatazkak** (25); **arteko gerra** (55); **arteko giroa** (32); **arteko harreman** (212); **arteko hitzarmena** (34); **arteko ibilbidea** (28); **arteko ika** (43); **arteko ituna** (27); **arteko kartzela** (33); **arteko komunikazio** (32); **arteko komunikazioa** (52); **arteko kontratua** (35); **arteko lan** (36); **arteko lana** (30); **arteko lankidetza** (60); **arteko lehen** (61); **arteko lehia** (230); **arteko lehiak** (42); **arteko lehiaketa** (37); **arteko lehian** (52); **arteko liskarrak** (47); **arteko lotura** (310); **arteko loturak** (104); **arteko maitasun** (32); **arteko maitasuna** (33); **arteko muga** (135); **arteko mugak** (75); **arteko mugan** (57); **arteko nahasketa** (46); **arteko negoziazioak** (40); **arteko norgehiagoka** (55); **arteko onik** (42); **arteko oreka** (131); **arteko partida** (72); **arteko partidak** (31); **arteko partidan** (25); **arteko talka** (36); **arteko tartea** (69); **arteko tirabirak** (28); **arteko topaketa** (33); **arteko txapelketa** (25); **arteko zatiketa** (32); **arteko zerbait** (26); **arteko zubi** (29); **arteko zubia** (28); **askoren arteko** (34); **auzoen arteko** (25); **baten arteko** (89); **batzuen arteko** (44); **belaunaldien arteko** (36); **beraien arteko** (36); **beren arteko** (181); **bestearen arteko** (25); **besteen arteko** (29); **bi aldeen arteko** (69); **bi alderdien arteko** (32); **bi herrialdeen arteko** (45); **bi herrien arteko** (48); **bi taldeen arteko** (53); **bien arteko** (510); **bien arteko harremana** (32); **bikoteen arteko** (27); **bion arteko** (145); **biren arteko** (37); **bizi arteko** (31); **denen arteko** (45); **desberdinen arteko** (36); **elgarren arteko** (58); **elkarren arteko** (221); **emakumeen arteko** (84); **emazteen arteko** (34); **enpresen arteko** (54); **eragileen arteko** (45); **erakundeen arteko** (97); **errealitatearen arteko** (27); **eskualdeen arteko** (25); **espainiako gobernuaren arteko** (33); **estatuen arteko** (77); **euren arteko** (93); **ezberdinen arteko** (51); **frantziaren arteko** (27); **gazteen arteko** (62); **gizakien arteko** (55); **gizonen arteko** (78); **gobernuaren arteko** (80); **gobernuen arteko** (39); **gu bion arteko** (32); **gurasoen arteko** (26); **gure arteko** (317); **guztien arteko** (177); **guztion arteko** (26); **haien arteko** (157); **hauen arteko** (34); **herri arteko** (26); **herrialdeen arteko** (105); **herriaren arteko** (42); **herrien arteko** (197); **herritarren arteko** (88); **hil arteko** (43); **hirien arteko** (30); **hitzen arteko** (44); **hizkuntzen arteko** (40); **homosexualen arteko** (60); **homosexualen arteko ezkontzak** (29); **horien arteko** (190); **indarren arteko** (44); **jendeen arteko** (32); **kideen arteko** (48); **kluben arteko** (35); **komunitateen arteko** (26); **kulturen arteko** (43); **lagun arteko** (40); **lagunen arteko** (29); **lanbide arteko** (30); **langileen arteko** (30); **lurraldeen arteko** (42); **nagusien arteko** (31); **nazioen arteko** (34); **nire arteko** (25); **orain arteko** (969); **ordu arteko** (133); **ordura arteko** (168); **palestinarren arteko** (38); **pertsonen arteko** (64); **pobreen arteko** (34); **politikoen arteko** (61); **sexuen arteko** (44); **sindikatuen arteko** (55); **taldeen arteko** (157); **zuen arteko** (47)

---

artekotasun *iz* artekoa denaren nolakotasuna.

Zenbait parada on huts egin zituen, hala nola "Camp David"-ekoa, gehiago bildu nahiz ez jakinez hautsi-mautsi batek sortzen duela bakea, hautsi-mautsiak galdegiten duela bien **artekotasuna**, bestea errespetatzen dela eta bakoitzak behar duela zerbait utzi. Herria

Ez genuen Unamuno-ren hizkuntzaren filosofia -edo teologia- osoa barrendu gura (ez gara haren testu guztiak, ezta gehienak ere, biltzen saiatu); gutxiago haren jokabideak hizkuntz politika espainolean; hizkuntzaren eta herri gogoaren **artekotasuna** nola tratatzen duen orrizkatu soil baino. Joxe Azurmendi

Guk ez dugu hautematen geure burua (gorputza, jarduna) gugandik at dagoen beste edozein objektu bezala bakarrik, fenomeno huts, ezpada baita barrutik ere, artekorik gabe (errepresentazioaren **artekotasunik** gabe). Askoren artean

Berea ez omen da plagioa, intertestualitatea, testu-**artekotasuna** baizik. Joxerra Garzia

Lapur txikiari ez zaio, ba, onartzen, berea lapurreta ez, baizik gauzak lekuz aldatzea dela, leku-**artekotasun** hutsa. Joxerra Garzia

Gaia: Kultur aniztasuna, kultur **artekotasuna**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kultur artekotasuna** (3)

---

artekotu, arteko(tu), artekotzen du *ad* arteko bihurtu.

Arazoa da, nola **artekotzen** dugun naturaren eta historiaren artean (elkarren osagarriok, natura eta historia, bata bestearen kontrarioak bezala ageri baitira). Joxe Azurmendi

---

artekotze *iz* arteko bihurtzea.

Xedea, zeure burua zomorro eta landare haien guztien **artekotzea** zenuen. Hasier Etxeberria

Balioen beren eta kasu honi egiten diogun aplikazioaren artean hainbat **artekotze** maila behar da eskaileran. Joxe Azurmendi

---

artelan 1 *(ETCn **12.344** agerraldi; orobat **arte-lan** ETCn **482** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **artelan** agertzen da) iz* artista batek onduriko lana.

Artelan bat -edo giza espirituaren edozein sorkari- organikoa dela esan ahal izateko, obra horren osagaien arteko erlazioak osagaiak berak bezain garrantzitsua behar du izan: organismo natural baten "antzekoa" behar du izan. Josu Zabaleta

Imitazioaren teoria soilik **artelanaren** propietate objektiboez arduratzen zen; hau da, objektua zeukan hausnarketaren helburutzat. Askoren artean

Artea garatu izan den ia gizarte guztietan arteak balio berezi bat, **artelanari** normala ez den izaera bat, ospe berezi bat, aura bat duela egiaztatzea baizik ez da, funtsean, hemen egiten duguna. Josu Zabaleta

Arteak, oro har, ez du zentzurik bat **artelanen** aura-balioa onartzeko prest ez badago; aura hori nolakoa den, ordea, eta zein **artelani** aitortuko zaion aura hori izatea, hori aldatuz joan da artea arte denetik. Josu Zabaleta

Eszenografoaren lanbidea aski berandu azaldu zen antzerkian; gaur egun sorkuntza-lan, **artelan** bezala ikusten da, eta egilearen edo antzezleen lanarekin parekatzen da batzuetan. Josu Zabaleta

2

Baliteke klasizismo garai bat "hobea" iruditzea, **artelan** beteagoak, iraunkorragoak produzitzen dituela iruditzea: hori, ordea, gure ikuspegitik begiratuta baizik ez da egia, baina gure ikuspegia irudipenezkoa baizik ez da; aldi guztietan sortzen dira **artelan** burutuak. Josu Zabaleta

---

artelantxo *iz adkor* artelan xumea.

-Mutilak, ez ahantzi ezen **artelantxo** horiei olagizonen izerdia dariela bazter orotarik, zeren batzuek infernua bizi behar izaiten baitute, bertzeek zerua goza dezaten. Joan Mari Irigoien

---

artelatz *iz* artearen antzeko zuhaitza, azala kortxoz osatua duena *(Quercus suber).*

Arkamurkaren -orain **artelatza** deitzen diote- azaletik 20 gramo. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bere hatzak, estreinako aldia da Sabethek **artelatz** bat ikusten duena: bere eriak, azala kraskatzen ari, eta gero berau niri jaurtitzen! Joxe Austin Arrieta

Zahartzea horixe da: **artelatzak** bere enborra txorkoarekin estaltzen duen bezalaxe bihotza babestea, eta hura zulatzea oso zaila da; zure bizitzan aspalditik datozen pertsonen esku bakarrik legoke. Pako Aristi

Samurtasunez deskribatu zion Ruche janari Kabilia basatiari atxikitako portutxoa; olibondoak eta **artelatzak**; arroketako barbarinak, papillote eran prestatuak; itsas trikuak. Jon Muñoz

Tortotxaren kukusagar: **artelatzaren** enbor edo adarretan egiten den borobiltasun bat. Patxi Ezkiaga

Eta egun batean hantxe iritsi ziren, zuhaizti batean zehar bide eginik, **artelatz** zaharrez guztiz inguraturiko soilgune batera, non hain hertsiki kokaturik baitzeuden zuhaitzok, ezen haien zirkuluak urdinezko putzu bat urratzen baitzuen zeruan. Juan Garzia

---

artelazki *iz* artelatzaren azala, kortxoa.

Tunante hutsa duk, beraren saltokian ezin duk ezer erosi, eta, gainera, denetariko zerrikeriak botatzen zizkiok ardoari: sandaloa, **artelazki** errea... intsusarekin ere nahasten dik alproja horrek!; baina atzeko gelatxotik (gordelekua esaten ziok berak) botilaren bat ateratzen badik, paradisuan hago, aizak. Jose Morales

---

artemarte *iz* amarrua, maltzurkeria.

Lehen peredikiak ahoko gostua emanik, erne ernea joan dira oro, **artemarterik** gabe, luzamenik ez batere: duela mila urteko euskal errege haundienaren bizi eta egintzetan sarturik gu gaurko jakingoxoak oro. Herria

---

artemein *adlag* duela gutxi.

Gure eginkizuna horixe baita: **artemein** Korintonko agure zahar hark egiten zuen bezala, astoa norabaitera gidatzea, horra gure lantegia! Joxe Austin Arrieta

---

artemisia **1** *iz* konposatuen familiako belar landarea, zurtoin bigunak eta usain leuneko loreak dituena, heste zizareen aurkako egoskinak egiteko erabiltzen dena *(Artemisia abrotanum).* ik **zizare 7**.

Han ikusiko du erretzen buruan ukan duen zizare-belarrez eta berbenaz osatutako koroa Würzburg aldeko inguruetan, **artemisia** edo zizare-belarrez eta berbenaz ehotako koroak zeramatzaten buruan gazteek, eta gisa horretan egiten zuten salto, burukominetatik libratzeko intentzioz. Pello Zabala

2 *artemisia min* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Artemisia min edo zizare-belar ("Artemisia vulgaris"), Artemisia (genero) Artemisia generoko landare-espeziea. ETC-entziklopedia

Ardo beltzak eta Génépi, **artemisia minean** oinarritutako likorea. ETC-entziklopedia

...udazken mendabelarra, sabia, esparragoa, inurri-belarra, oilo-belarra, garikota, azeri-mahatsa, milorria, **artemisia min** a, milazka afrikarra, otondo-belarra, axarioa... eta abar luuuuuuuuuuuze bat. ETC-prentsa

---

artemisina *iz* malariaren tratamenduan erabiltzen diren sendagaien multzoa.

Horregatik, esperantza eragin du Ameriketako Estatu Batuetako hainbat ikertzailek Nature aldizkarian argitara eman duten albisteak: **artemisina** egiteko lehengaia ugari ematen duen legamia sortu dute. Berria - Gaiak

Orain **artemisinan** oinarritutako terapia konbinatua eskaintzen diete eriei, eta askoz ere emaitza hobeak lortzen dituzte. Berria - Gaiak

---

artemurru *iz* arteko murrua.

Zoladura, murru eta **artemurru** denak atakatu dituzte, tximinia aitzineko harri baliosak eraman dituzte eta horiek guziak ez balire aski, zilatzeko mekanika moderno batekin zilo egiten ari izan dira altxorra non zegoen miatzeko. Michel Oronoz

---

arteondo *iz* pagoaren familiako zuhaitz ez oso garaia. ik **arte**[1].

Aldi hartan, Jaunaren aingerua Ofra herrixkara etorri eta **arteondo** baten azpian jarri zen. **Arteondo** hura Abiezerren senitarteko Joaxena zen. Elizen arteko biblia

Orduan, Sikemgo nagusi guztiak eta Bet-Miloko jendea bildu eta Sikemgo zutarriaren aldamenean dagoen **arteondo** ingurura joan ziren Abimelek errege izendatzera. Elizen arteko biblia

---

arteragoko *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi) izlag* lehenagokoa.

Errepidearen erdi-erdian tripaz gora zanpatuta begiztatu duen katuaz pentsatzen hasterako ahaztu zaizkio, haatik, **arteragoko** guztiak eta, konturatzerako, begiak bete. ETC-literatura, saiakera

Arteragokoetan ikusitakoaren arabera, zaindaria beste agindu bat ematera zihoala konturatutakoan, gorpuari besapeetatik heltzera abiatu zen Galo. ETC-literatura, saiakera

Madrilgo emakume alarguna, psikologia klinikoan profesionala dena, dismorfofobiaz solasten hasi zitzaigun bart seigarren whiskia eskatzen ziolarik zerbitzariari (**arteragoko** bortzek ez zioten ageriko eraginik egin denboran eta espazioan kokatuta segi zezan). ETC-literatura, saiakera

Marik, **arteragokoei** batutako ipuin ugaritan errepikatzen denez, ezkerreko eskuan ispilua dauka (edo erreka den berezko ispilua) eta eskumakoan urrezko orrazia. ETC-prentsa

Hil zenetik bosgarren urtea betetzean, **arteragoko** lauretan bezala, Iñaki Rikeren oroitzapenean herri-ekitaldia egiteko baimena eskatu Herrizaingo Sailari eta debekua izan da erantzuna, biktimak minduta senti daitezkeelako. ETC-prentsa

Gainera, euskaraz idazten hasi zirenetik **arteragoko** iragarle zenbait galdu dituzte, baina berriak hurreratu zaizkie. ETC-prentsa

Informazio paralinguistikotzat intentzioa, jarrera eta hizkera-estiloak jotzen dira; eurok **arteragokoen** moduan hiztunaren kontrolpean daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

arteraino *postpos* arte, artean.

Kale-kantoiei bizkarra erakusten zienean, hamar **arteraino** kontatu, eta burua jiratzen zuen, beti ere Andreas kale-kantoiren batetik irten, eta kotoi-balak saltzen berandutu izana edo antzeko arrazoiren bat entzuteko esperantzaz. Anjel Lertxundi

Burua nigandik hurbil eroriz gero, hartu eta neure azken unera **arteraino** maitatuko nuen. Joxan Elosegi

Diokleziano enperadoreak Erromako kale gorrian hil **arteraino** torturatua, eta azkenean aizkorakada batez lepoa moztua... Txillardegi

Hori gertatu **arteraino** ez zuen, hala ere, izerdi guti egin. Aingeru Epaltza

Eta hala berak, erlijio-bizitza hasi zuenetik hil zen **arteraino**, tunika bakarra, gerriko soka eta barruko galtzekin aberats, ez zuen besterik ezer eduki. Askoren artean

Ate Beltza mila zatitan lehertu zen, eta oso urrunetik, orain amatatu, orain handitu, hodeien **arteraino** igota, danborren hots gorra eta luzatua entzun zen, dunbotsa, hondamendiaren eta suntsipenaren arradak sortutako oihartzuna. Agustin Otsoa

Eta hola egonen zara hil **arteraino**. Itxaro Borda

Eta gero Sebasen irudia zuhaitzenekin zirriborratuz joan zen, orban ezdeus bilakatu **arteraino**. Eider Rodriguez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arteraino ez** (4); **bihurtu arteraino** (5); **egin arteraino** (6); **hil arteraino** (13); **isuri arteraino** (3)

---

arterainoko *postpos* arteko.

Galdegina da 70 urte **arterainokoeri** zabaltzea etsamin horiek. Herria

Jerusalemdik Jeriko **arterainoko** kokaguneak handituz eta elkarrekin lotuz, "Jerusalemgo udalerria eskualde judu" bilakatzeko asmoak ere salatu dituzte. Berria - Mundua

-Neska -esan zion gero neska gazteari-: esaion hire nagusiari, gu bion artean ez dagoela bakerik, heriotza **arterainoko** gerra baizik. Juan Kruz Igerabide

Santa Bibiana abenduak 2 dituenean ospatu ohi da; abenduak badaki euritik ematen, eta 3 aste -dio- hortxe, neguan sartu **arterainoko** horretan. Pello Zabala

Neuk ere ez nuke Izotz ene begietan babestu **arterainoko** onik nahi. Anjel Lertxundi

Urteak burura egin gabe, hil **arterainoko** pozaldirik handiena hartuko zuen: gure Henrikek ihes egina zuen gogoz kontrako ostatua ematen zion gaztelu italiarretik. Aingeru Epaltza

Baina zabartzen dena, harroxko edo handiputz bihurtzen dena, patuaren opariak umil onartu ezin dituena, grazia-egoera horrek jainkoen oparia alferrik galdu gabe irauten duen **arterainokoa** dela ohartzen ez dena, akabo, horrenak egin dik. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hil arterainoko** (4)

---

arteratu, artera(tu), arteratzen du *ad* tartean jarri.

Itxi baino istant bat lehenago **arteratu** nuen oina. Aingeru Epaltza

---

arteria 1 *iz* odola bihotzetik gorputzaren beste ataletara eramaten duen zaina.

Arteria baten eta zain baten bidez lotzen zaizkio muskulu guztiak odol-zirkulazioari. Irene Aldasoro

Bi hodiren bidez konektatzen zen gaixoa makinara: hodi bat **arteria** batean sartzen zitzaion, odola irten zedin, eta, bestea, berriz, zain batean, odolak itzulerako bidea egin zezan. Irene Aldasoro

Adinean aurrera egin ahala, gorputzeko **arteria** gehienak estutzen dira. Irene Aldasoro

Arteriak, oxigenoa eta ezinbesteko beste substantzia kimiko batzuk ekartzen ditu, motor batek erregaia hurrupatzeko duen sistemaren antzera. Irene Aldasoro

Arteriak dilatatu egiten dira; benak, estutu, eta odola parrastan doa ehunetara. Luis Elberdin

Ehunak banatu, zainak eta **arteriak** moztu eta ondoren, Rebekaren gorputzeko beste zati batetik hartutako ehunekin estaliko dugu burua. Berria - Gaiak

Bihotzeko bi hutsegite jasan izan zituen iragan hiru urteetan, odol presioa handia zuen eta **arteriak** huts egitekotan zeuzkan. Oskar Arana

Robet Listonek zirujautzako hainbat asmakuntza eta tresna egin zituen: **arteria** itxi eta eria odolustu ez zedin erabiltzen ziren tresnak, esaterako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kateterismoa egin diote bi **arteriatan**. Berria - Euskal Herria

Odola geldiago doanez kapilarretatik haietara eraman duen **arteriatik** baino, kapilarren zeharkako ebakiduren azalerak handiagoa izan behar du, guztira, **arteriarenak** baino. Irene Aldasoro

Ospitaleko larrialdietara eraman behar izan zuten atzo Diego Armando Maradona, **arterietako** tentsioa eta odoleko tenperatura altuegiak zituela eta. Berria - Kirola

Ume horri pisua orekatzen lagunduz gero, **arterietako** arazoek atzera egiten dute. Berria - Euskal Herria

Mutazio horrek odola bihotzera eramaten duten **arterietan** hanturak eragin ditzake. Berria - Gaiak

Bihotz-muskuluak ongi betetzen duela bere egitekoa: uzkurtu eta odola **arterietara** ateratzen duela eta erlaxatu eta berriro odolez betetzen dela. Irene Aldasoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ume gizen baten **arteria** nagusiek 40 urteko pertsona erretzaile baten arterien antz handia daukate. Berria - Euskal Herria

Bihotzetik kanpora irteten da, aortatik, hau da, odola gorputzaren gainerako ataletara eramateko adarkatzen den **arteria** handitik. Irene Aldasoro

Baldin eta odola, biriketako kapilarretatik presio baxuan igaro eta gero, berriro **arteria** zabaletara bildu behar balitz gorputzeko beste atal batzuetara eramateko, askoz gehiago ponpatu beharko litzateke. Irene Aldasoro

Hazka eginda odola borborka jartzen da, irakiten, eta **arteria** txiki eta azalekoenetara etortzen da. Luis Elberdin

Deiadar dagi ene patuak, eta horrek gorputz honetako **arteria** koxkor bakoitza Nemeako lehoiaren zaina bezain gotortzen du. Juan Garzia

Beso eta zangoetako **arteria** nagusiak zain artean daude, oso baldintza onetan beroa trukatzeko. Irene Aldasoro

Larruazalaren bitartez gaude harremanetan kanpoaldearekin, eta kolpeak, ebakiak eta urradurak izateko arriskua du; hala, **arteria** lodienak gainaldean baleude, ezbehar horien ondorioak askoz larriagoak izango lirateke. Luis Elberdin

Jauzi izugarria egin zidan bihotzak, adrenalinak aortaren eta **arteria** koronarioen artean zirkuitu-labur bat eragin izan balit bezala, halakorik esan badaiteke behintzat. Joan Mari Irigoien

Berriki egindako esperimentuek erakutsi dute besoko **arteria** erradialeko odola 21,5 ºC-ra jaitsi daitekeela eta, aldi berean, gorputzeko tenperatura zentrala bere 37 ºC-an mantendu. Irene Aldasoro

Odola berotu egin zaie pixka bat, indar handiagoz isurtzen da beren **arteria** esklerotikoetatik, eta zainak haziak dauzkate bekokian eta lokietan. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Honako hauek dira gaitz horietako batzuk: **Arteria**-hipertentsioa, diabetesa, bihotzeko arazoak, dislipemia, hepatopatia, gaixotasun neurologikoak eta depresio sindromea. Berria - Gaiak

Obsesionatu egin nintzen nire bularraren azpian gurutzatzen ziren zain- eta **arteria**-zirkuituak, lirdinga eta odolezko barne-sare trinkoa irudikatzen saiatuz. Oskar Arana

Ondo diseinaturiko makina bat da bihotza, eta helburura iristeko adinako presioan bidaltzen du odola **arteria**-sistemara. Irene Aldasoro

Arteria-odolak aurrera egiten du, pixka bat hozturik, baina ondoko zainek are odol hotzagoa daramate, eta beraz, beroa xurgatzeko gai dena. Irene Aldasoro

Denbora luzean uste izan zen **arteria** -odolaren tenperaturak alde txikia zuela gorputzaren zentro nagusikoarekin. Irene Aldasoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurikuletatik jasotako odola biriketara bidaltzen du eskuineko bentrikuluak, birika-**arterian** zehar; ezkerreko bentrikuluak, berriz, gorputz osora bidaltzen du odola, aorta **arterian** zehar. Berria - Gaiak

Bihotza koroa batek bezala inguratzen dutelako deitzen dira koroa-**arteria**. Irene Aldasoro

Gibelak badu, hala ere, beste hornibide bat, gibel-**arteria**, ondo oxigenaturiko odola presio handian bidaltzen diona, zain-odolarekin nahasteko. Irene Aldasoro

Odola (giltzurrun-**arteriatik**) giltzurrunetara heltzen denean hasten da prozesaketa. Irene Aldasoro

5 irud/hed hirietako kale edo komunikazio bide zabala.

Han behean zegoen metropoli modernoaren bihotz nekagabea, neonezko **arteria** argitsuek zeharkatua: bankuak, museoak, pizzeriak, megadendak. Patxi Iturritegi

Lenox da Harlemgo **arteria** nagusia eta bertan oinez zoazela atentzioa ematen duen lehen gauza, hiruzpalau etxebizitzaz osaturiko eraikinen artean dagoen funeraria mordoa da. Harkaitz Cano

6 ***aorta arteria***

Aurikuletatik jasotako odola biriketara bidaltzen du eskuineko bentrikuluak, birika-arterian zehar; ezkerreko bentrikuluak, berriz, gorputz osora bidaltzen du odola, **aorta arterian** zehar. Berria - Gaiak

7 ***arteria-adar*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Porta zainaren adar fin bakoitzaren ondoan, arteria hepatikoko adar finak daude, eta anastomosi ugari daude zain- eta **arteria-adarren** artean. ETC-zientzia, zuzenbidea

P mm Hg eta Q mL/min **arteria-adar** baten muturren arteko presio-diferentzia eta adarra zeharkatzen duen odol-fluxua diren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Urdaileko arteria laburrak bost-zazpi **arteria-adar** txikiak dira, eta arteria esplenikoaren banaketa-adarretan sortzen dira barearen hilioan. ETC-entziklopedia

8 ***arteria erradial***

Denbora luzean uste izan zen arteria-odolaren tenperaturak alde txikia zuela gorputzaren zentro nagusikoarekin, baina berriki egindako esperimentuek erakutsi dute besoko **arteria erradialeko** odola 21,5 ºC-ra jaitsi daitekeela eta, aldi berean, gorputzeko tenperatura zentrala bere 37 ºC-an mantendu. Irene Aldasoro

9 ***arteria esfenopalatino*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arteria esfenopalatinoa arteria maxilarrean sortzen eta sinu frontal, maxilar, esfenoidal eta etmoidaletan, sudur-barrunbearen kanpoko albo-paretan eta sudur-trenkadan barrena hedatzen den arteria da. Sudurreko odoljarioen arteria da. ETC-entziklopedia

10 ***arteria femoral*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Bularreko eta hanketako minez jarraitzen dut, eta bi **arteria femoralak** erabat trabatuta ditut. ETC-prentsa

Izterrondoan jo du, baina balak ez du **arteria femorala** ukitu. ETC-prentsa

Metodo honetan kateter bat sartzen da **arteria femoralean** eta, aortatik igoz, garuneko arterietara iristen da, azkenik aneurismara helduz. ETC-entziklopedia

Arteria femoralean zehar, kateter bat odolbildua dagoen punturaino bideratzen da, gailu ezberdinen bitartez odolbildua kanporatu eta hodiaren birkanalizazioa lortzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 ***arteria gastroduodenal*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Urdail eta duodenoko arteria edo **arteria gastroduodenala** arruntki, arteria hepatiko komunean sortutako (baina aldaerak dituena) arteria bat da. Arteria hau duodeno, pankrea eta omentua odolez hornitzeaz arduratzen da. ETC-entziklopedia

12 ***arteria hepatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Arteria hepatiko komuna edo gibel-arteria komuna enbor zeliakoan sortutako arteria labur bat da. ETC-entziklopedia

Arteria hepatiko propioa edo gibel-arteria propioa **arteria hepatiko** komunean sortutako arteria bat da. ETC-entziklopedia

Hitz gakoak: erradioenbolizazioa, gibeleko minbizia, **arteria hepatikoa**, adarkadura. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gibelaren irrigazioari dagokionez, odoleztatze arteriala zein benosoa ditu, hiliumetik **arteria hepatikoa** eta porta bena sartzen baitira. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 ***arteria hepatiko komun*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Arteria hepatiko komuna edo gibel-arteria komuna enbor zeliakoan sortutako arteria labur bat da. Urdaila, pankrea, duodenoa, gibela, behazun xixkua eta omentua odolez hornitzen ditu. ETC-entziklopedia

14 ***arteria hepatiko propio*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Arteria hepatiko propioa edo gibel-arteria propioa arteria hepatiko komunean sortutako arteria bat da. Urdaila eta behazun xixkua odolez hornitzen ditu. ETC-entziklopedia

15 ***arteria ileokoliko*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arteria ileokolikoa goialdeko mesenterio-arteriaren albo batean sortutako arteria bat da. Ileona, itsua, heste sobrea eta goranzko kolona odolez hornitzen ditu. ETC-entziklopedia

16 ***arteria iliaka arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arteria iliaka arrunta, aortaren azken zatia. ETC-entziklopedia

17 ***arteria iliaka komun*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Arteria iliaka komunak, lehen arteria iliako primitiboak deituak, aorta arteriaren adarkatzean sortutako bi arteria handiak dira. ETC-entziklopedia

18 ***arteria iliako*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Arteria iliaka komunak, lehen **arteria iliako** primitiboak deituak, aorta arteriaren adarkatzean sortutako bi arteria handiak dira. ETC-entziklopedia

19 ***arteria iliako primitibo*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arteria iliaka komunak, lehen **arteria iliako primitiboak** deituak, aorta arteriaren adarkatzean sortutako bi arteria handiak dira. ETC-entziklopedia

20 ***arteria interlobular*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Giltzurruneko arteria bakoitza giltzurruneko sinuaren barruan **arteria interlobularretan** adarkatzen da, eta horiek parenkiman sartzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arteria interlobularrak giltzurrun-arterian sortutako arteriak dira. ETC-entziklopedia

21 ***arteria karotida*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Hughek trebe mozten zion bizarra anaiari ertzetik, bena jugularra eta **arteria karotida** igarota. ETC-literatura, saiakera

Hortaz, burmuin-kaltea eragiteko, lehenengo eta behin, ezkerreko **arteria karotida** komuna behin betiko okluitu egin zitzaien, eta bi ordutako atseden prozesu baten ostean, animaliak 135 minutuz asfixiatu egin ziren oxigeno kontzentrazioa %8-ra jaitsiz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezkerreko **Arteria karotida** arteria komunaren adar bat da. Lau zatitan banaturik dago: zerbikal, petroso, leizetsu eta zerebrala. ETC-entziklopedia

22 ***arteria karotida komun*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hortaz, burmuin-kaltea eragiteko, lehenengo eta behin, ezkerreko **arteria karotida komuna** behin betiko okluitu egin zitzaien, eta bi ordutako atseden prozesu baten ostean, animaliak 135 minutuz asfixiatu egin ziren oxigeno kontzentrazioa %8-ra jaitsiz. ETC-zientzia, zuzenbidea

23 ***arteria koronario*** koroa-arteria.

Jauzi izugarria egin zidan bihotzak, adrenalinak aortaren eta arteria **koronarioen** artean zirkuitu-labur bat eragin izan balit bezala, halakorik esan badaiteke behintzat. Joan Mari Irigoien

24 ***arteria koronarioetako gaixotasun*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Paziente horien heriotza kausarik ohikoena **arteria koronarioetako gaixotasun** ateromatosoa izan zen 25 kasutan (%40,9), gehienak 30 urtetik gorakoak. ETC-prentsa

Ebakuntza aurretik egindako bihotz-kateterismoak **arteria koronarioetako gaixotasun** garrantzitsua zuela erakutsi zuen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gaixotasun kardiobaskularra terminoa **arteria koronarioetako gaixotasun** mota guztiei deitzeko erabiltzen dugu; gaixotasun horiek bihotzarekin edo odol-hodiekin (arteriak eta zainak) lotzen ditugu. ETC-entziklopedia

25 *arteria laberintiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Nerbio hau **arteria laberintikoaren** satelitea da, hau da, arteria honekin batera doa bere ibilbidean zehar. ETC-entziklopedia

26 *arteria pankreatiko handi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Arteria pankreatiko handia arteria esplenikoan sortutako arteria bat da. Pankrea odolez hornitzen du. ETC-entziklopedia

27 *arteria-presio*

Pertsona normal batek aortan, bihotzaren ondoan, duen **arteria-presio** maximoa 120-150 mm Hg da (1 kg inguru 6 cm2-ko). Irene Aldasoro

28 *arteria sigmoideo* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Arteria sigmoideoak , batzuetan, behealdeko mesenterio-arteriatik zuzenean jaiotzen diren arteriak dira, baina, oro har, beheko arteria kolikoa edo **arteria sigmoideoen** enborra izeneko enbor komun batetik datoz. ETC-entziklopedia

29 *arteria subklabio* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Era honetakoak dira karotida, **arteria subklabioak** , biriketako arteriak eta izenik gabeko arteria gehienak. ETC-entziklopedia

30 *arteria tentsio* *(corpusean ez dago; ETCn 14 agerraldi)*

Nerbio sistema autonomoa orekatu eta **arteria tentsioa** doitzen du, hau guztia Elhuyarreko norbaitek zuzendu behar luke urdaila gibela ez duk lehia ezta hire buruarekikoa ere patioan korrika egiten duanean bezala ez bortxatu ez duk presarik nora joan nahi duk. ETC-literatura, saiakera

Duela ordu eta erdi ingresatu dute oinazerik gabeko hemorragiaz eta 140-90ko **arteria tentsioarekin** . ETC-literatura, saiakera

Nik, ia hirurogeita hamar urtetan eta **arteria-tentsioak** galbidera naramala, barregarri deritzot. ETC-literatura, saiakera

"Zer moduz gaude" galdetzeko denbora eta, asko jota, pultsua eta **arteria-tentsioa** hartzeko denbora. ETC-literatura, saiakera

Odoljarioa hasi baino lehen, **arteria-tentsioa** igo egiten da, eta gero, berriz, jaitsi. ETC-literatura, saiakera

Biofeedback teknikak teknologia aurreratu eta berritzailea erabiltzen du hainbat adierazle fisi ologikoren informazioa jasotzeko (bihotz-erritmoa, azalaren tenperatura, **arteria-tentsioa** , etab.) ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, sintoma hauetako batzuk agertzen dira: takikardia edo bradikardia, begininiaren dilatazioa, **arteria-tentsioaren** goratzea edo beheratzea, oka egitea edo botagura, pisuaren galera, asaldura psikomotorra, giharren ahultasuna, bihotzarritmia, diszinesiak, distoniak, krisi epileptikoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hasierako ezaugarriak edema, **arteria tentsioaren** gehitzea eta gernuan albumina agertzea dira. ETC-entziklopedia

Bestalde, siesta sasoian **arteria tentsioa** ere gutxitu egiten da eta diabetesa duten gaixoengan tentsio aldaketak gerta daitezke siestaren ondorioz. ETC-prentsa

Potasioa ezinbestekoa da **arteria tentsio** handia duten pertsonentzat. ETC-prentsa

31 *arteria uterina* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Adibidez, Rami helicini (**Arteria uterina**) izenez ezagutzen dira umetoki-arteriaren adar kiribilduak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arteria zuzenak miometrioko arteria erradialen (**arteria uterinaren** adarrak diren) adarkadurak endometrioan sartzen dira eta haien adarkadurak diren arteria helikoidalak edo espiralak ikus daitezke endometrioan. ETC-zientzia, zuzenbidea

32 *arteria uterino* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Bertatik uterora nerbioak eta odol-hodiak ailegatzen dira, **arteria uterinoak** eta arteria baginalak, hain zuzen ere. ETC-entziklopedia

33 *arteria zeliako* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Arteria zeliakoaren kasuan, fase arterialean, eremu esplaknikorako odol-emaria ezagutuko dugu, fase kapilarrean gibelaren eta barearen tamaina, eta zain-fasean zain-sistema portalaren ezaugarri anatomikoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nahiz eta arteria koronarioak autopsietan beti erlazionatuta egon, KG baskulitis hedatu bat da, zeinetan gorputz osoko odol hodiek parte hartzen duten eta ikusi izan dira aneurismak hauetan ere, **Arteria zeliakoetan** , Arteria mesenterikoetan, Arteria femoraletan, Arteria iliakoetan, Arteria errenaletan, Arteria axilar besapekoetan eta brakialetan. ETC-entziklopedia

34 *barneko arteria toraziko* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Barneko arteria torazikoa edo barneko bularralde-arteria (emakumezkoen kasuan) arteria subklabiotik eratorritako adar bat da, beheranzko norantza duena. ETC-entziklopedia

35 *barneko karotida arteria* *(corpusean ez dago; ETCn 9 agerraldi)*

Hipofisiaren beheko arteriak **barneko karotida-arterietatik** irteten dira lepoaren alde banatan, eta, infundibuluaren inguruan arteria-eraztun bat osatuz anastomosatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Garunaren odoleztatzean lau arteria nagusik hartzen dute parte, eskuineko eta ezkerreko **barneko karotida arteriek** eta eskuineko eta ezkerreko orno-arteriek. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arteria oftalmikoa edo begi-arteria begi-globoko eta betzuloko arteria da; **barneko karotida arteriaren** zati zerebralean sortu ondoren hodi optikoan barrena sartzen da betzuloan, eta begiaren ertz medialean amaitzen da. ETC-entziklopedia

Lepoaren albora kokatua, hioide hezurraren inguruan kanpoko karotida arterian eta **barneko karotida arterian** banatzen da. Lepoaren atzealdean dago. ETC-entziklopedia

36 *beheko arteria epigastriko* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Beheko arteria epigastrikoa kanpoko arteria iliakoaren alboko adar gisa sortzen den eta goiko arteria epigastrikoarekin anastomosi bat egiten duen arteria bat da. ETC-entziklopedia

37 *bihotzeko arteria* *(corpusean ez dago; ETCn 26 agerraldi)*

Bihotzekoa gertatzen da **bihotzeko arteriaren** bat oztopatzean. ETC-prentsa

Bihotzeko arteriak osatzeko ohiko teknika baino hobea den beste bat aurkeztu dute AEBetan. ETC-prentsa

Bihotzeko arteria bat bat-batean apurtuz gero, akabo, adibidez. ETC-prentsa

Urte mordoxka bat bada, dagoeneko, **bihotzeko arteria** batean lehen metal zatitxoa jarri zidatela. ETC-prentsa

Bihotzeko arteria nagusia ia erabat itxita zeukan serbiarrak, eta atzo egin zioten ebakuntza, Donostian. ETC-prentsa

Lepoan ebaki txiki bat egin eta zulo hori baliatzen dute **bihotzeko arterietan** kateter bat sartzeko. ETC-prentsa

Bihotzeko arteria koronario baten endotelioaren patologia-aldaketen eraginez, plaketak atxiki egin daitezke eta arteriaren lumena buxatzen duen odolbildua sortu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Honek guztiak bihotzeko bat gertatzea eragin dezake, **bihotzeko arterietan** (arteria koronarietan) irrigazioa galtzen delako eta bertan dauden zelulak hitzen direlako, odola gorputzera ponpatzeko gaitasuna galduz. ETC-entziklopedia

Botikak erabiltzeaz gain, **bihotzeko arteriak** estutzea tratatu daiteke, estuguneak hedatuz edo odol jarioa birbideratuz, buxadura bat saihesteko. ETC-entziklopedia

Transplantea egin ondoren, **bihotzeko arterien** paretak loditu eta gogortu egin daitezke eta horrek bihotz aloktono baskulopatia sor dezake. ETC-entziklopedia

38 *birika-arteria*

Aurikuletatik jasotako odola biriketara bidaltzen du eskuineko bentrikuluak, **birika-arterian** zehar; ezkerreko bentrikuluak, berriz, gorputz osora bidaltzen du odola, aorta arterian zehar. Berria - Gaiak

Lehenengo zirkuituan, bihotzaren eskuineko aldetik **birika-arterietara** ponpatzen da odola; **birika-arterietatik** , beste hodi txikiago batzuetara banatzen da (arteriola izenekoetara), eta haietatik biriketako kapilar finen sarera, oxigenoa eta karbono dioxidoa trukatuko diren lekura. Irene Aldasoro

39 *biriketako arteria*

Eskuineko bentrikulu artifiziala eskuineko atriora eta **biriketako arteriara** lotuta dago, eta ezkerreko bentrikulua ezkerreko atriora eta aortara. Berria - Gaiak

40 *buruko arteria* (corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)

Buruko arteria modu arriskutsuan puzten ariko zitzaion ordu-rako, bien oharkabean. ETC-literatura, saiakera

41 *erdiko meninge arteria* (corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)

Erdiko meninge-arteria masailezur-arteriaren goranzko adar albokideetatik lodiena da; zulo biribil txikian barrena sartzen da garezurrean eta duramaterraren zati handi bat garaztatzen du, ganga kranialean ildoak eratuz. ETC-entziklopedia

pterygomeningeus, pterygomeningea, pterygomeningeum: pterigoide irtenguneari eta meninge-mintzei dagokiena, eta bereziki **erdiko meninge-arteriaren** adarretan, besteak beste, pterigoide giharretara eta dura materreko eskualde batera hedatzen dena (Arteria pterygomeningea). ETC-zientzia, zuzenbidea

42 *erretinako arteria zentral* (corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)

Erretinako arteria zentrala begi-arterian sortzen den betzuloko arteria da, nerbio optikoarekin batera ikuspapilan sartu ondoren erretinako ora serrataraino hedatzen diren goranzko eta beheranzko bi adarretan banatzen dena. ETC-entziklopedia

43 *ezkerreko karotida arteria* (corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)

Ezkerreko karotida arteria karotida arteria komunaren adar bat da. Lau zatitan banaturik dago: zerbikal, petroso, leizetsu eta zerebrala. ETC-entziklopedia

Ezkerreko karotida arteriaren estenosia ikusten da, kaltzifikatutako ateroma-plaka batek eragina. ETC-zientzia, zuzenbidea

44 *giltzurruneko arteria* (corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)

Giltzurruneko arteria bakoitza giltzurruneko sinuaren barruan arteria interlobularretan adarkatzen da, eta horiek parenkiman sartzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Abdomeneko aorta arteria handiaren beheko zatia da. Diafragman hasten da, beherantz toraxeko aortaren jarraipena izanda, eta arteria iliakoetan amaitzen da. Bertatik ateratzen dira abdomenean **giltzurruneko arteriak**. ETC-entziklopedia

45 *goiko arteria epigastriko* (corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)

Goiko arteria epigastrikoa barneko arteria torazikoaren alboko adar gisa sortzen den eta beheko arteria epigastrikoarekin anastomosi bat egiten duen arteria bat da. ETC-entziklopedia

46 *karotida arteria* (corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)

Karotida arteria, edo karotida soilik, odola burura eramaten duten bi arterietako bakoitza da. ETC-entziklopedia

Karotida-gorputzak organo txikiak dira (3 x 5 mm), jatorrizko **karotida-arteriaren** adarkatzean kokatuak daude eta zeregin garrantzitsua dute arnasketan, bihotzaren taupadetan eta odol-presioaren erregulazioan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Animaliari uretanozko anestesiapean (1,5 g/kg p.b) **karotida arteria** komuna kanulatu egiten zaio odol-presioa neurtzeko, azken hori 80 eta 100 mmHg bitartekoa izanik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Neurologoek hemisferio bat behin-behinean paraliza dezakete, **karotida arterian** amobarbitala injektatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ugaztunetan, adibidez, erdiko belarriaren hiru hezur?oak eratzen dituzte, eta Eustakioren tronpa, **karotida arteria**, amigdalak, laringea eta nerbio kranialak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Anatomian, adibidez, Glomus caroticum izena hartzen du **karotida arteria** komunaren bikoizgunean aurkitzen den hartzaile kimikoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Karotida-kanala da barruko **karotida-arteriak** garezurrez kanpotik barrura sartzeko erabiltzen duen pasabidea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Garunaren odoleztatzean lau arteria nagusik hartzen dute parte, eskuineko eta ezkerreko barneko **karotida arteriek** eta eskuineko eta ezkerreko orno-arteriek. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bertatik bertara zartatutako jostailuak **karotida arteria** ebaki zion. ETC-prentsa

Tomek **karotida arteria** batean lesio bat du eta hori aztertzeko eskanerra egin zioten ekainean. ETC-prentsa

Karotida arteria batean nodulo bat atzeman zioten Tomeri, baina gaixoari ez zioten jakinarazi abendura arte, neurologoaren kontsultara joan arte. ETC-prentsa

47 *koroa-arteria* bihotz inguratzen duena. ik **koronario 3**.

Bi **koroa**-arteriek eramaten dute oxigenoa bihotzaren muskulura (bihotza koroa batek bezala inguratzen dutelako deitzen dira **koroa**-arteria). Irene Aldasoro

Badirudi, gainera, **koroa**-arteriak txikiegiak direla beren lana behar bezala egiteko. Irene Aldasoro

48 *lepauztaipeko arteria* (corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)

Lepauztaipeko arteria edo arteria subklabioa goiko gorputz-adarreko arteria bat da. Bi daude; eskuina enbor brakiozefalikotik jaiotzen da, eta ezkerra aorta arteriatik jaiotzen da. ETC-entziklopedia

49 *orno arteria* (corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)

Orno arteria arteria subklabioaren adarra da. ETC-entziklopedia

Biak entzefaloaren oinaldean kokatuta, barneko arteria karotidatik (eskuin eta ezkerra) eta **orno-arterietatik** (eskuin eta ezkerra) heltzen zaie odola. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sintomak agertzeak -bertigoa, zorabioa edo nistagmusa- edozein aldetako errotazioan, alde horretako **orno-arteriaren** konpresioa adierazten du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dirudienez, **orno arterian** edota arteria erradikularrean nahigabe egindako kortikoide partikulatuen injekzioa eta ondoriozko oklusio arteriolarra litzateke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zulo nagusian daude, nagusiki, ornomuina, **orno-arteria** eta osagai eta vagus nerbioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

50 *sabel-arteria* (corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)

Enbor zeliakoa edo **sabel-arteria** abdomen aortaren aurreko aurpegitik ateratzen den lehenengo adarra da. ETC-entziklopedia

51 *saihets arteko arteria* (corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)

Saihets arteko arteria saihetsarteko espazio edo tarteak garaztatzen dituzten arterietako bakoitza da. Aurrealdean bederatzi bikote daude batetik (goiko eta beheko adarra bikote bakoitzean) eta goiko saihetsarteko arteria edo gorena bestetik. Atzealdean, ordea hamaika bikote simetriko dira. ETC-entziklopedia

Bereziki ikusmen-nerbioan, begi barruan esklera aurrean kokatzen den zatia (Pars prelaminaris nervus optici intraocularis), baita atzeko **saihets arteko arteriaren** bizkar-adarretatik ornomuinera. ETC-zientzia, zuzenbidea

52 *umetoki-arteria* (corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)

Adibidez, Rami helicini (Arteria uterina) izenez ezagutzen dira **umetoki-arteriaren** adar kiribilduak. ETC-zientzia, zuzenbidea

53 *zilborreko arteria* (corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)

Odola karenatik pasatzen doan heinean presio arteriala jaistean da; izan ere, **zilborreko arterian** presioa 50 mmHg-koa da, eta zilborreko zainean 20 mmHg-koa da. ETC-entziklopedia

Zilbor-arteria edo **zilborreko arteria** barneko arteria iliakoaren aurreko enborraren adar biszerala da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

koroa arteriak (3)

---

arterial 1 *izond* arteriarena, arteriari dagokiona.

Adituen arabera, gatz gehiegi hartzeak tentsio **arteriala** igo eta bihotzekoa izateko arriskua handitzen du. Berria - Gaiak

Ikerketen arabera, bestalde, gatz kopurua murriztuz gero, lau astean pertsona baten tentsio **arterialak** behera egiten du. Berria - Gaiak

Duela bost urte, Utahko Unibertsitateko (AEB) zientzialari talde batek tentsio **arterialarekin** lotura duen gene bat ikertu zuen. Berria - Gaiak

2 *hipertentsio arterial* *(corpusean ez dago; ETCn **111** agerraldi)*

Hala ere, edo horrexegatik ere bai, haren osasunak gero eta arazo gehiago zituen: erreumak jota jarraitzen zuen, eta min handia zeukan hanketan; bularreko angina ere bazuen, eta **hipertentsio arteriala**. ETC-literatura, saiakera

Dieta egokia, botikak eta ariketa fisikoa egitea dira **hipertentsio arterialari** aurre egiteko neurri onenak. ETC-prentsa

Gorostiagak bularreko minbizia du eta horren ondorioz linfedema, diabetes mellitus, dislipemia mistoa eta **hipertentsio arteriala** ditu. ETC-prentsa

Arrisku kardiobaskularra gehitu egin da, baita diabetesarena, **hipertentsio arterialarena**, loaldiko apnea-sindromearena eta alterazio pneumatologikoen intzidentzia ere. ETC-prentsa

Organismoari pixkanaka egokitzeko astirik eman ez diogunez, ondoreak hor ditugu: obesitatea, diabetesa, **hipertentsio arteriala**, etab. ETC-prentsa

Gainera, ikerketak argi utzi du gizakiengan lotura estua dagoela **hipertentsio arterialaren** eta bihotzeko fibrosiaren artean. ETC-prentsa

Garuneko infartua adinean aurrera doazen pertsonetan agertu ohi da, normalean **hipertentsio arterial** edo diabete arazoen eraginez. ETC-prentsa

Hipertentsio arteriala atzeratu edo gaitzari aurrea hartzen dio, eta jadanik hipertentsoak direnetan tentsioaren zifrak gutxitu egiten ditu. ETC-prentsa

Sodioa eta ura atxikitzen dute: hala, edema eta **hipertentsio arteriala** izateko arriskua sortzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kausa ohikoena **hipertentsio arteriala** da eta bigarrena angiopatia amiloidea deritzona (adineko pertsonetan ikusi ohi da). ETC-zientzia, zuzenbidea

Farmako hauek medikuntzan batez ere **hipertentsio arteriala** murrizteko, bihotz gutxiegitasun kongestiboan, egoera edematosoetan eta giltzurrun gutxiegitasunean erabiltzen dira. ETC-entziklopedia

Esfigmomanometro digitalen bitartez, **hipertentsio arteriala** pairatzen duten pertsonek egunero beraien presio arteriala kontrola dezakete era erraz batean. ETC-entziklopedia

3 *presio arterial* *(corpusean ez dago; ETCn **213** agerraldi)*

Presio arteriala (batzuetan arteria-presioa), odol-presioa edo tentsio arteriala odolak denbora-unitateko arterien hormen kontra egiten duen indarra da. ETC-entziklopedia

Beldurrak berehalako aldaketa fisiologikoak eragiten ditu: metabolismo zelularra gehitzen da, **presio arteriala**, odoleko glukosa, garunaren jarduera eta odol koagulazioa handitzen dira. ETC-literatura, saiakera

Elkarrizketa horietan pilotuak **presio arteriala** eta gorputzeko tenperaturaren berri eman zion bere medikuari. ETC-prentsa

Hipertentsio arteriala ohikotik gorako **presio arterialari** deitzen zaio. ETC-prentsa

Ariketa estatikoetan, aldiz, **presio arterialaren** gorakada gertatzen da. ETC-prentsa

Pertsona guztiek dute **presio arteriala**; baina maila batetik goiti dutenak gaixo daude. ETC-prentsa

Ez dira hiru egunetik gora erabili behar, mendekotasuna sorrarazi eta **presio arteriala** igoarazi baitezakete. ETC-prentsa

Ordua iritsi ahala **presio** arteriala igoarazten sentitu behar du, bihotz-taupadekin batera. ETC-prentsa

14 eta 9 arteko **presio arteriala** izatea da gomendagarriena. ETC-prentsa

Gainera, **presio arterialaren** igoera arriskutsua ekar dezake. ETC-prentsa

Norberak erabaki zuen egun bakoitzean zein txokolate mota kontsumitu, eta saiakeraren hasieratik amaierara hainbat parametro alderatu ziren, esaterako, **presio arteriala**, lipido kantitatea eta glukosa. ETC-prentsa

Hipertentsioaren tratamenduan, sendagaiek ez dute tonu fuertea izan behar (gorria, laranja), egiaztatu baita kolore horiei begiratzeak pultsua, arnasketa eta **presio arteriala** handitzen duela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Presio arteriala handituz doa adinarekin, eta, badirudi lotura hori estutu egiten dela gatzaren kontsumoa gehiegizkoa denean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bradikardia, takikardia sinusala, **presio arteriala** igotzea, mioglobinemia batez ere haurretan... ETC-zientzia, zuzenbidea

Iktus iskemikoa zein hemorragikoa izateko arriskua handitzen du, erlazioa zuzena izanik (zenbat eta garaiagoa **presio arteriala**, orduan eta handiagoa arriskua). ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *tentsio arterial*

Ikerketen arabera, bestalde, gatz kopurua murriztuz gero, lau astean pertsona baten **tentsio arterialak** behera egiten du. Berria - Gaiak

---

arterioesklerosi *(ETCn **23** agerraldi; orobat **arteroesklerosi** ETCn **16** agerraldi)* *iz* arterien gogortzea.

Kokainak eragina du bihotza odolez hornitzen duten arterietan, uzkurtze bortitzak eragiten ditu, arteriak itxi egiten dira, eta kokaina-hartzailea, pertsona zaharren gaixotasunik izan gabe ere, **arterioesklerosia** eta horrelakoak, bat-batean hil daiteke. Antton Olano

Hala ere, bihotz-hodietako gaitzak tratatzeko ere erabiltzen dira, baita **arteroesklerosi** prozesuetan ere. Berria - Gaiak

---

arteriografia *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)* *iz* arterien erradiografia.

Arterietan (**arteriografiak**), zainetan (flebografiak) nahiz hodi linfatikoetan (linfografiak) injektatutako iododun kontrasteen disoluzioei esker, sare baskularra ikus dezakegu hainbat eremutan (karotida-eremua, aorta-eremua, giltzurrun-eremua, birika-eremua...). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arteriola 1 *iz* arteria baten adar txikia.

Bihotzetik irten eta gero, zirkulazio sistemikoko arterietara banatzen da lehenik odola (8.2 irudia); handik, **arteriola** izeneko beste hodi txikiago batzuetara, eta kapilar estuetara gero; kapilarretan, gorputzeko ehunei oxigenoa eraman, eta karbono dioxidoa jasotzen du. Irene Aldasoro

Lehenengo zirkuituan, bihotzaren eskuineko aldetik birika-arterietara ponpatzen da odola; birika-arterietatik, beste hodi txikiago batzuetara banatzen da (**arteriola** izenekoetara), eta haietatik biriketako kapilar finen sarera, oxigenoa eta karbono dioxidoa trukatuko diren lekura. Irene Aldasoro

2 *arteriola aferente* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Makula trinkoko zelulen jariatze parakrinoaren eraginez, glomerulura doan **arteriola aferentea** zabaldu egiten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arteria-odola kapilar-sare glomerularrean sartzen da, **arteriola aferente** baten bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Glomeruluetako kapilarrek odola **arteriola aferente** batetik jasotzen dute eta arteriola eferente batera bidaltzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Giltzurrunaren jarduera nagusia nefronan gertatzen da. Nefrona bakoitzean **arteriola aferente** deritzon odol-hodi txiki bat sartzen da eta glomeruluetara odola eramaten du. ETC-entziklopedia

3 *arteriola eferente* *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Halaber, giltzurrunetako glomeruluen **arteriola eferentea** estutu egiten da eta horrek diuresia dakar (gernu gehiago ekoiztea), baita sodio gehiago iraiztea ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arteria-odola glomerulutik kanpora jariatzen da, **arteriola eferente** baten bidez; ondoren, arteriola hori nefronaren zati tubularra inguratzen duen kapilar-sare dentsoa eratzeko zatitzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Glomeruluetako kapilarrek odola arteriola aferente batetik jasotzen dute eta **arteriola eferente** batera bidaltzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kapilar hauek arteriola aferenteetan jaiotzen dira eta **arteriola eferentearen** bidez husten dira (aferentearena baino diametro txikiagoa dute hauek). ETC-entziklopedia

Arteriola eferentearen bitartez, odolaren kontrako ibilbidea bideratzen da. ETC-entziklopedia

---

arteriosklerosi *iz* arterietako eritasun kronikoa, arteriak gogortzea ezaugarri duena.

Erretinako gaixotasun ohikoenak, berriz, honako hauek dira: makularen endekapena, erretina askatzea eta diabetesa, hipertentsioa, eta **arteriosklerosia** moduko gaixotasunen ondorioz sortzen diren erretinopatiak Berria - Gaiak

Arteriosklerosiaren eragile nagusietakoa da, eta bihotzekoak ere eragin ditzake. Berria - Gaiak

---

arteritis *iz* arteria baten hantura.

Arteritis zipoztailea: ur karbogaseosoak. Berria - Euskal Herria

---

arteroesklerosi ik **arterioesklerosi**.

---

artesanal *izond* artesauena, eskulangintzazkoa.

Animazioa urria da, arina da, baina estetikoki oso deigarria: Guri gustatzen zaiguna, **artesanala** da, oso artistikoa. Berria - Kultura

Balkan Txiki argitaletxe **artesanala** zen, produkzio laburra baina zaindua kaleratzen zuena. Jon Alonso

Eta guztiarekin ere, txarrena zen Entelekiak argitaletxeko arduradun nagusiak bazekiela edo susmatzen zuela hain **artesanalak** eta hain interesgarriak ez ziren argitaletxeetan ere egoera ez zela askoz hobea. Jon Alonso

---

artesau *iz* eskulangilea, eskulangintzan aritzen den pertsona.

Poeten jatorriari begiratuta, enperadoreak daude tartean (hamar oso onak), jauntxoak, funtzionarioak, **artesauak**, baso-mutilak, mirabeak, dantzariak, txalupa-zainak. Pako Aristi

Beste lanbide bat imaginatu behar banio idazle honi, argazkiak deskoloretzen irudikatuko nuke, Pariseko karrika estu bateko **artesau** denda ezdus batean. Berria - Kultura

---

artesi **1** *iz* gauzakietan gertatzen den tarte arrakala edo pitzadura. ik **arteka**[1], **arrail**.

Kupularen zerusabaian bazen **artesi** bat, eta tanta batzuk zerizkion handik, tanta hala ere ez urezkoak. Juan Garzia

Dagoena pitzatuak dira, pitzadurak, **artesiak**. Iñaki Segurola

Artesiak zentimetro bateko saltoa zuen, eta 1, 6 zentimetro zen zabal. Edurne Elizondo

Urtegiko langileak agertutako **artesiak** porlanez betetzen ari zirela jakinarazi zuten koordinakundeko kideek. Edurne Elizondo

Artesiz josia zeukan azala. Joxan Elosegi

Harkaitz-**artesi** eta arbola-zuloetan egin ohi zituzten beren erresumak erle zuhur maratzek, edozeini doan eskainiz beren lanbide goxoaren labore joria. Patxi Ezkiaga

2 irud/hed

Zela hargatik, zela beste zerbaitengatik, senarra urruntzen zihoakiola igartzen zuen Angelak; bien arteko **artesia** egunetik egunera zabaltzen zihoala. Xabier Montoia

Zeremoniaren **artesiak**. Patziku Perurena

Dendaren inguruko berri eta nobedade guztiek estali egin baitzituzten Sergio eta Sararen arteko harreman zartatuen arraildurak eta **artesia** guztiak. Joan Mari Irigoien

Nor arduratzen zen oroitzapenak eta disgustuak eta heriotzak eta lezio injustuak burutik ateratzen zizkigutenean, zanga horiek hondarrarekin betetzeaz, ura zirrikituetatik sartu eta azpiraino eror ez zitezen gure buruko **artesiak**, gure arrazoimena lurperatuz? Harkaitz Cano

Artesirik gabeko adorearekin heldu zion euskara gizarteratzeari, euskara duina erabiltzeko bidea erakusteari, euskara ikertzeari... hala jarraitu zuen bizitza osoan. Berria - Kultura

3 (buruko ilean)

Ilea beltza zuen pikea bezala, **artesia** erdian egina, sarri-sarria, bekokia estu laburra, eta bibotea txiki-txikia, gora kiribildua. Matías Múgica

Ubel eta triste jarri zen, eta ilean **artesia** egiten hasi zen abilezia txalogarriz. Karlos Linazasoro

Ilea gaztaina-kolorea eta sarria zuen, alde batean **artesia** egina, mugimendu eta ibilera jauzkariak, eta pertsona osasuntsu eta bizkorraren itxura. Xabier Olarra

Ile-gogortzailea emana zuen; ileko **artesia** xuxen-xuxen egina; traje iluna, marra argiz ildaskatua. Jon Muñoz

Neskari traba ez egitearren, ardura handiz jantzi zen, eta txistua bota zuen eskuetara ilean **artesia** egin aurretik. Koro Navarro

Ile beltz distiratsua zuen, erdian **artesiaz** erdibitua eta kurba luze batean belarrien atzera orraztua. Irene Aldasoro

---

artesiar **1** *izond* putzuez mintzatuz, ura gorantz berez joaten dena.

Ur irakinezko iturburu bikainak sortzen ziren han-hemenka, izadiak aintziraren hondoan zulatutako putzu **artesiar** batzuetatik, eguzki printzek ortzadar txiki banaz apaintzen zituztela. Karlos Zabala

2 ***artesiar putzu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arroa munduko **artesiar putzurik** sakonena eta zabalena da, 1.700.000 km2 baino gehiago izanik. ETC-entziklopedia

3 ***putzu artesiar***

Ur irakinezko iturburu bikainak sortzen ziren han-hemenka, izadiak aintziraren hondoan zulatutako **putzu artesiar** batzuetatik, eguzki printzek ortzadar txiki banaz apaintzen zituztela. Karlos Zabala

---

artesidun *izond* artesiak dituena.

Ohartu nintzen, gerra-bidezidorrean indiarrak duen zehaztasunaz eta zorroztasunaz, bazela han gazte bat, zeinaren lepoa baitzen jirafa oin-lasterrarena baino luzeagoa eta zeinaren feltrozko kapela **artesidunak** txirikorda bat baitzuen apaingarritzat, estilo-ariketa bateko heroiarena bailitzan. Xabier Olarra

---

artesitu, artesi(tu), artesitzen **1** du *ad* artesiak gertatu.

Tarte berean, 119,9. kilometroan, Bilbo parean, **artesitu** egin zen errepidea, eta eskuineko lerroa itxi behar izan zuten. Berria - Euskal Herria

2 (izen gisa)

Artesituak dauzka, jaulierra oroit liteke pertsona izan zela inoizko batean. Koldo Izagirre

---

artetan *adlag ipar* aldian behin.

Erraiten banu bizian ero aireño bat behar dela halere... poxiño bat, **artetan** bederen. Menane Oxandabaratz

Hura zen esneketariaren alaba, **artetan** han edo hemen ikusia nuena, behin ere ez haatik solasik emana. Janbattitt Dirassar

Aroa ere alde, **artetan** euri xorta batekin bazterraren freskatzeko doia. Herria

Hain xuxen, notari-zerbitzuek etxe tratuen berri emaiten dute **artetan**. Herria

Egun osoak eta **artetan** gauak bideetan higatzen genituen, mendiko ziloak eta talwegen xokoak miatuz. Piarres Aintziart

Artetan pentsatzen nuen ere rugbyko ene lagunei. Daniel Landart

Besteak ihesi joan ziren mugaz bestaldera, **artetan** agerraldi bat egiten zutela hemen, gordezka. Xipri Arbelbide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artetan agertzen (5); **artetan bederen** (14); **artetan behar** (3); **artetan euri** (3); **artetan gertatzen** (3); **artetan halere** (3); **artetan han edo** (3); **artetan holako** (4); **artetan ikusten** (3); **artetan on** (3); **artetan segurik** (4); **artetan zonbait** (3); **bainan artetan** (8); **baitira artetan** (3); **behar dira artetan** (3); **da artetan** (3); **direla artetan** (3); **ere artetan** (13); **naiz artetan** (3); **nintzen artetan** (4)

---

artetik 1 *adlag* bide batez; bitartean.

Azpimarratu behar da 9tan ttanko hasirik, 12: 30tan bururatu dela, **artetik** atseden memento bat segurtaturik. Herria

Kantari guziak ikusiko dira eta **artetik** elkarhizketa batzu ere aurkitzen dira. Herria

Artetik erraiteko, gisa bereko solasak noiz entzunen dira Pariseko minixtro baten ganik? Herria

Artetik, erran behar da Madrigal familiakoak Quezon familiaren lagun handiak zirela. Ramuntxo Etxeberri

Artetik nexkatxa bat sartzen bazen, solasa berehala mozten zuen eta haurrari idor idorra: "Zer behar dun? Zer? Bunbunak? Erakutsan zenbat sos dunan!". Michel Oronoz

Artetik jakiten dugu eskola guzietako arazo bera agertzen zela hor ere: laborari semeak abendutik martxora arte baizik ez ziren agertzen. Xipri Arbelbide

(**Artetik** esan, biluztasuna, paradisutik eta haurtzarotik egotzitakoentzat, bi eratakoa izan ohi da. Iñaki Segurola

2 *artetik erran*

Artetik erraiteko, hamar urte hauetan hain aipatuak izan diren leku horiek euskaldun anitzek arras ongi ezagutuak zituzten aspaldian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Bidaia luzea zuan, baina gehien-gehiena autobidez, zera baino garestiagoa, **artetik errateko**. Aingeru Epaltza

Artetik erraiteko, oroit haatik ainitz badirela burdin-bide berri baten kontra. Herria

8 miliar euro edo holako zerbait oraiko ustez! Harrigarri ere da, **artetik erraiteko**, holako kasu batzuetan euroak zoin aise kondatzen diren... miliarka! Herria

Artetik errateko, Pujoren bankuaren ondoan, bigarren diru iturria Sanofi Aventis munduko hirugarren talde farmazeutikoa da. Berria - Kultura

Horra zergatik ez den harrigarri - **artetik errateko** - horrenbeste eztabaida, ikusten den bezala, gizakien artean sortzea eta, hortik, azkenean, Eszeptizismoa nagusitzea. Piarres Xarriton

-Artetik erraiteko, zendako zara egun Loretxo eta ez Loretxu? Janbattitt Dirassar

-Aaaa, eta **artetik erraiteko**, Emmak telefonatu dik hiretzat. Daniel Landart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adar artetik (3); **adarren artetik** (4); **ainitzen artetik** (4); **ametsen artetik** (3); **arroken artetik** (3); **artaldeen artetik** (4)

artetik ageri (6); **artetik agertu zen** (3); **artetik agertzen** (3); **artetik alde egin** (3); **artetik argi** (3); **artetik aterata** (3); **artetik ateratzeko** (3); **artetik ateratzen** (6); **artetik aukeratu** (5); **artetik aurrera** (9); **artetik bat nabarmendu** (4); **artetik batzuk** (7); **artetik begira** (7); **artetik begiratu** (7); **artetik bere** (10); **artetik beste** (7); **artetik bezala** (5); **artetik bi** (5); **artetik bidea** (6); **artetik bizirik** (5); **artetik burua** (3); **artetik desagertzen** (3); **artetik edo** (9); **artetik eraman** (3); **artetik ere** (11); **artetik erran** (3); **artetik errateko** (7); **artetik ez** (9); **artetik ezabatuko** (3); **artetik gizon** (3); **artetik gora** (7); **artetik gure** (3); **artetik hautatu** (4); **artetik herritarrek eskaini** (3); **artetik hona** (3); **artetik igaro zen** (3); **artetik igaroko** (5); **artetik igarotzen da** (3); **artetik igarotzen ziren** (3); **artetik ihes egin** (3); **artetik ikusi** (5); **artetik ikusten** (4); **artetik iragan** (3); **artetik iraganez** (3); **artetik irristatzen** (4); **artetik irten** (4); **artetik irteten** (3); **artetik isurtzen** (4); **artetik itzuri** (5); **artetik joan** (5); **artetik kanpora** (3); **artetik kentzen** (3); **artetik lasterka** (4); **artetik lehen** (4); **artetik ni** (3); **artetik nola** (4); **artetik norbaitek** (3); **artetik pasa** (9); **artetik pasatuz** (4); **artetik pasatzen** (14); **artetik piztu da** (3); **artetik piztu zuen** (5); **artetik sartu** (18); **artetik sartzen zen** (5); **artetik sigi** (3); **artetik zein** (3); **artetik zelatan** (4); **artetik zerbait** (3)

askoren artetik (6); **atzamarren artetik** (5); **aukera guztien artetik** (4); **autoen artetik** (8); **baloia hagen artetik** (3); **barren artetik** (3); **barroteen artetik** (3); **baten artetik** (8); **batzuen artetik** (11); **belarren artetik** (3); **belarrien artetik** (3); **belaun artetik** (4); **beltzen artetik** (6); **beraien artetik** (4); **berdeen artetik** (3); **beren artetik** (9); **beso artetik** (8); **besoen artetik** (5); **besteen artetik** (6); **bezeroen artetik** (4); **bien artetik** (11); **bion artetik** (3); **burdinen artetik ihesi** (4); **denden artetik** (3); **denen artetik bat** (3); **desberdinen artetik** (4); **direnen artetik** (5); **elkarren artetik** (3); **entzuleen artetik** (5); **errezel artetik** (3); **errezelen artetik** (4); **esku artetik ihes** (3); **esku artetik kendu** (3); **eskuen artetik** (3); **etxeen artetik** (3); **ezkien artetik ibilki** (6); **ezpain artetik** (21); **ezpainen artetik** (6); **filistearren lerro artetik** (3); **gaiztakeria zeuen artetik** (7); **garaien artetik** (3); **gauza guztien artetik** (5); **gizakien artetik** (3); **gizonen artetik** (5); **gortina artetik** (3); **gortinen artetik** (14); **gure artetik alde** (3); **guztien artetik bat** (4); **handien artetik** (8)

hanka artetik (4); **hanken artetik** (5); **harrien artetik** (3); **hatz artetik** (6); **hatzen artetik** (19); **hau artetik erraiteko** (4); **hauen artetik** (6); **hedoien artetik** (3); **herri osoaren artetik** (3); **herrien artetik** (8); **herritarren artetik** (5); **hilen artetik piztu** (29); **hilen artetik piztua** (4); **hilen artetik piztuz** (4); **hitzen artetik** (4); **hodei artetik** (6); **hodeien artetik** (5); **hondakinen artetik** (12); **horien guzien artetik** (10); **horien guztien artetik** (3); **horren artetik** (3); **hortz artetik ihes** (3); **hortzen artetik** (8); **hosto artetik** (10); **hostoen artetik** (8); **ikusleen artetik** (4); **ilunpe artetik** (3); **itzal artetik** (3); **itzalen artetik** (5); **izter artetik** (4); **jainkoak hilen artetik** (3); **jateko artetik** (4); **jende artetik atera** (3); **jendearen artetik** (9); **jendeen artetik** (3); **jendetza artetik** (4); **jendetzaren artetik** (14); **juduen artetik** (3)

kantuen artetik (4); **ke artetik** (6); **kearen artetik** (4); **koipetsuen artetik** (3); **kristo hilen artetik** (7); **laino artetik** (21); **lainoen artetik** (5); **lan guzien artetik** (4); **lanen artetik** (6); **leinu guztien artetik** (3); **lerroen artetik** (8); **lokatz artetik** (3); **mahaien artetik** (8); **mendi artetik** (3); **mendien artetik** (3); **nahasien artetik** (4); **nazioen artetik** (3); **ondoko ezkien artetik** (6); **ororen artetik** (3); **orrien artetik** (3); **paperen artetik** (3); **pinu artetik** (3); **publiko artetik** (4); **pusken artetik** (4); **sareen artetik** (3); **sarrien artetik** (3); **sasi artetik** (8); **sasien artetik** (9); **sastraka artetik** (6); **seme alaben artetik** (3); **semea hilen artetik** (3); **ugarien artetik** (5); **zabalen artetik** (3); **zabor artetik** (3); **zangoen artetik** (4); **zatien artetik** (3); **zeinen artetik** (3); **zuen artetik** (8); **zuhaitz artetik** (13); **zuhaitzen artetik** (14); **zuhaixken artetik** (4); **zurien artetik** (3)

---

artetsu 1 *izond* antzetsua; maltzurra.

Izatez, une desberdinetakoak diren zatien elkarketa **artetsu** batez osatzen baita, osatu ere, irudia. Josu Zabaleta

Analemmatik abiatuz orduen kalkuluak trazatu behar dira irudietan, eta hortik era eta mota askotako erlojuak aterako dira eta metodo **artetsu** hauek erabiliz trazatuko dira. Santiago Iruretagoiena

Gerora, ezin ahaztuko nuke, Goierri aldekoa hau ere, itsasondoar Arantxa Arza **artetsuarekin**, eguraldia mintzagai abiatuta, elkar toreatzen saio politak egin genituela uste dut. Pello Zabala

Jakituria guztietatik frogatu eta ikasiz gero, ezjakitunenei erakusteko grazia izan zuen gizon **artetsua**. Pello Zabala

Jokaldiak konbinatzea zaila zen; baina kontuan hartu behar da Konpainiako kideak guztiahaldun eta **artetsuak** zirela. Juan Garzia

2 (adizlagun gisa)

Ez da bidezkoa isilpean uztea, zein **artetsu** estali zituen, nolako ahaleginez ezkutatu Gurutziltzatuaren zauriak, espiriturik altuenek ere beneratzea merezi dutenak. Askoren artean

Molde arras nabarmenez mintzo zen emakumea, ezpainei **artetsu** eraginez, gorren hizkeran arituko balitz bezala. Mirentxu Larrañaga

Gero, suzkoa bailitzan, ezpainetatik mihira eta aho guztira iraganarazi zenuen, **artetsu**. Hasier Etxeberria

---

artexa *izond ipar* trebea, iaioa.

Geroztik, lanak aintzinatu arau, bildu ditu ofiziale **artexa** horien egite baliosak. Herria

Eskertzekoak dire lan dorpe hori bururatu dituzten ofiziale **artexak** eta buruzagi zintzoak. Herria

Artexa baita aitzurrez. Herria

Sukaldeko tresneria berri horietan biziki langile ernea, **artexa** eta zerbitzu egilea zen. Herria

---

artez 1 *izond* zuzena.

Arteza nahiz okerra, ordurarteko bidea ezin zen atzera ibili. Xabier Montoia

Nothomben soa **arteza**, bizkorra eta sendoa da, beldurrik ez daukan baten begirada. Berria - Kultura

Orain ez ziren pintzelada **artezak**, ez ziren marrak; kolore-zirkulua zen orain, edo izar bat. Unai Elorriaga

Iluntasuna eta kea antzematen da beste aldean, sartu bezain laster, iluntasuna, kea, larruzko txupak, praka estuak, gandor gorri **arteza**, kateak eta giltzarrapoak. Sonia Gonzalez

Zeren bits gazitik gora irteten diren arraun zati guztiak artezak baitira eta lemaren goi aldea ere **arteza** baita; urpean murgilduek, ostera, hautsirik eta okerturik dirudite, berriro gorantz bailetozen, ur azalean ia flotatzeraino. Xabier Amuriza

Agirrek **arteza** dirudi, baina apurka-apurka ikusten dugu ez dela hain ona, merkatariak irabazia zaintzen baitu guztiaren gainetik. Markos Zapiain

Iluntasuna eta kea antzematen da beste aldean, sartu bezain laster, iluntasuna, kea, larruzko txupak, praka estuak, gandor gorri **arteza**, kateak eta giltzarrapoak. Sonia Gonzalez

Eta han paratu zen bera denon aurre-aurrean, burua gora, taketa baino **artezago**. Joseba Sarrionandia

Lar goiz zen arren, ume ugari zegoen eskolako ate handien aurrean, bakoitza bere maletarekin, bere aurpegi garbiarekin, bere ile orraztu eta arraia **artezarekin**, bere amarekin, bere haur seriotasunarekin. Joseba Sarrionandia

Erretratuak biziduna ematen zuen, gainera, eta Goioren begiek erretratuko haren begirakune **artezarekin** tope egiten zuten, mutil hura lauki barruan mugitzen hasiko zela eta edozer gauza esaten hasiko zela ematen baitzuen. Joseba Sarrionandia

2 *adlag* zuzen.

Artez joan zen gelara, oheratu aurretik gonapeko galburuak astintzera. Urtzi Urrutikoeetxea

Goazen, artista, berba gutxi eta **artez** etxera lehertu arte ekitera. Urtzi Urrutikoeetxea

3 *artez edo moldez*

Etxebizitza alokatzeko jasotzen dituzten laguntzak ezin direla "aurrekontuen arabera baldintzatu» uste dute, eta horixe da **artez edo moldez** Jaurlaritzako hiru alderdiei ohartarazi dietena. Berria - Euskal Herria

Argitzeke dago, baita ere, aginte publikoan ziren hainbatek erasoan erantzukizunik izan ote zuten edo ez; susmo handiak baitaude **artez edo moldez** beraiek hilketa egiteko aukerak ipini zituztela. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artez artez** (7); **artez artez** (7); **jo zuen artez** (3); **zuzen eta artez** (4)

---

artezale *izond* artearen zalea dena.

Aita medikua zen eta **artezalea**. Ibon Uribarri

Ederra izaten da urtean behin hara agertu eta artistekin, galeristekin eta **artezaleekin** mintzatzea. Hasier Etxeberria

Ez dago jakiterik margolan horiek noiz, nondik eta nork ekarririk iritsi ziren Errusiara; haietako batzuk gure handikiek ekarriak dira: **artezaleak** izaki, Italian erosten zituzten hango gidarien aholkuei jarraiki. Jose Morales

Obren bilduma ttipi bederarekin osatu den erakusketa ederra eta ainitza eskainiz **artezaleen** atseginarentzat. Herria

"Elkarren adiskide minak izateaz gain, Max eta Martin **artezale** handiak dira", azaldu du Bernuesek. Berria - Kultura

Antoine de Galbert **artezaleak** sortutako fundazioa arduratuko da finantzazioaren %70ez. Berria - Kultura

---

artezaletasun *iz* artearekiko zaletasuna.

Malenkonia burgesa dario bere haurtzaroko Vienako **artezaletasuna** oroitzean; analisi zorrotza, ikasketa-garaiko zurrunkeria aztertzean. Berria - Kultura

---

artezarau *iz* zuzentaraua.

1997an Lurralde Antolamendurako **artezarauak** onartu zirenean ez zela Pasaiako kanpo portuaren aipamenik egin. Berria - Euskal Herria

Aurtengo bandera beltza Europako **artezarauari** eman badio ere, Surfrider Fundationek argitaratu berri du kalitate txarra duten hondartzen zerrenda. Berria - Euskal Herria

Frantziako uraren legeak eta bereziki Europako **artezarauek** agindu zorrotzak ezarri dituzte indarrean saneamendu arloan. Berria - Euskal Herria

---

artezbide *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)* *iz* zuzentzeko era.

Goiak, gizartearenak eta gizabanakoarenak, balio du bere mailako gauzetarako, goiko eta goragoko gauzetarako: legea idazteko, arauak, irizpideak eta **artezbideak** emateko, segurtasuna, aurreikuspena, jainkoa, ideiak eta holako gauzetan pentsatzeko, eta eguraldiaren iragarpena egiteko ere bai. ETC-literatura, saiakera

Europako ingurumen **artezbideen** arabera, administrazio guztiek betebeharra dute zabortegietako baimen eta lanen jarraipena egiteko, baita udalek ere beren lurretan:" Inork ezin du zabortegi bat ireki baimenik gabe". ETC-prentsa

Lurralde Antolamendu **Artezbideen** aurka 1997. urtean aurkeztutako errekurtso baten ondorioz, EAEko Auzitegi Nagusiak duela gutxi kaleratu duen sententzia baten berri eman zuen Friasek. ETC-prentsa

Landa-garapen esparrua, berriz, izaera horizontalerantzako pausoak adierazten dituzten **artezbideen** muinaz jabetzen da, besteak beste, ekonomia-dibertsifikazioa, zerbitzu eta azpiegiturak, hezkuntza eta ondare kulturala. ETC-zientzia, zuzenbidea

? Erregulazio-neurriak, normatiba orokorraren bitartez bideratzen direnak: zonifikazio-kategoriak, lurralde-antolamendurako **artezbide**-dokumentuek azaltzen duten bezala (lur-erabileren matrizea, adibidez, EAEko kasuan) ETC-zientzia, zuzenbidea

Hasiera batean, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA) zioen itzulpen ofizialak, nahiz eta Hiztegi Batuak **artezbide** eman. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nazioarteko 1.300 adituk baino gehiagok parte hartu zuten azterketa zientifiko horretan, eta, era berean, ekosistemak berreskuratzeko, zaintzeko edo haien erabilera iraunkorra hobetzeko **artezbideak** ere ematen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

artezgailu *(corpusean ez dago; ETCn **428** agerraldi)* *iz* korronte alternoa korronte zuzen bihurtzen duen gailua.

Elektronikan, **artezgailua** korronte alternoa -norantza bietan doan korronte elektrikoa- korronte zuzen -norantza bakarrean doana- bihurtzen duen osagai elektroniko edo zirkuitu elektrikoa da. ETC-entziklopedia

Hau nagusiki garrantzitsua izaten da tentsio erregulatzaileetan, merkurio lurrun **artezgailuetan**, T/R kommutazio-balbuletan, etab. ETC-entziklopedia

Garatu dira dagoeneko kable molekularrak, molekula bakarreko transistoreak eta **artezgailuak**. ETC-entziklopedia

Potentzia-bihurgailua **artezgailuaz**, birsorkuntzako balaztaz eta inbertsoreaz osatua dago. ETC-entziklopedia

Historikoki fase gehiagodun sistemak ere egon izan dira, sei eta hamabi fasekoak adibidez, **artezgailuak** elikatu eta kizkurdura txikidun tentsio jarraiak lortzeko. ETC-entziklopedia

Korronte alternoa neurtzeko zirkuituan **artezgailu** bat gehitu behar da, bobinaren deflexioa norantza batekoa bakarrik izan dadin. ETC-entziklopedia

E3 eranskinean, oinarrizko elektronika; eta, azkenik, E4 eranskinean diodoen aplikazio arrunt bat: **artezgailua**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oso tresna eroso eta baliagarria da itzultzailearentzat, **artezgailu** ahaltsu eta erabilerraza daukana. ETC-zientzia, zuzenbidea

Korronte jarraituko potentzia-iturri honek korronte alternoa korronte jarraitu bihurtzen du **artezgailu** bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretarako dagoen zirkuiturik sinpleena uhin erdiko **artezgailua** da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

artezi *iz* arrakala.

Kretako Agurea bezala, **artezi** batek arrakalatzen du oinarritik gailurreraino, gora egin ahala gero eta meharragoa **artezia**. Juan Garzia

Ukuiluan ekaitzaldi bakoitzean itoginak izaten ziren, goitik, lastategitik irazten baitzen ura: **artezi** bat horman, nonbait, zeren teilak (berak egin zion kontu teilatuari Pazkoan) oso-osorik zeuden denak. Juan Garzia

Basa herri barbaro hartatik urruntzeko, ordurik agerikoena hautatu nuen, arrats apala, ia gizon guztiak jalgitzen baitira **artezi** eta putzuetatik, eta sartaldeari beha jartzen, hura ikusi gabe. Juan Garzia

---

artezia *iz* trebetasuna.

Eta, segur, giza afektuek, gizakiarenak ezpada, Naturaren indarrak eta **artezia** ez dituzte gutiago adierazten, miresten eta atseginez kontenplatzen ditugun beste anitz gauzarenak baino. Piarres Xarriton

Gizontto hozberak kartarik ekarri gabe eman zigun sukaldariaren **arteziaren** berri. Aingeru Epaltza

Eta hau toki guztietan horrela da: askotan esaten da Japonia, adibidez, oso praktikoa dela eta **artezia** berezia erakutsi duela inguruko herrien ikerketa praktiko guztiak bereganatzen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lehenengoetan urritu egin da **artezia**; bigarrenetan, berriz, gehitu; eta gauzak egiteko behar den gaitasun-mailaren arabera estimatu ohi dira gauza horiek. Iñaki Iñurrieta

Ez dugu inoiz desarmaturik sentitu behar: natura ikaragarri zabala da eta konplexua, baina ez adimenarentzat barneraezina; haren inguruz inguru ibili behar duzu, ziztatu, zundatu, **artezia** aurkitu edo zeuk egin zuloa. Juan Garzia

Baina Jainkoaren legeen ala gizalegeen arabera errana da, bere **arteziaren** eta zuzentasun propioarengatik nornahiri ematen zaion egitekoa ez zaiola beste bati emanen egitera. Piarres Xarriton

Ilunpean tiroak ikusten edo lapurren zelatan jartzen denean, ausardiaz beteta dago, eta gauzak baldarki edo **arteziarik** gabe egiten dituenean, samurtasunez betea da. Josu Zabaleta

Eta orain, Eisenhower jeneralaren idazkaritzan, bere **arteziaren** emaitza ari zen biltzen. Alberto Ladron Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 1 aldiz agertzen direnak)**
>
> **artezia aurkitu** (1); **artezia berezia erakutsi** (1); **artezia bezalako zerbait** (1); **artezia handia dugu** (1); **artezia handiz burutua** (1); **artezia handiz prestatutako** (1); **haren artezia** (2); **indarrak eta artezia** (1); **meharragoa artezia** (1); **trebetasun eta artezia** (1)
>
> **arteziaren berri** (1); **arteziaren emaitza** (1); **arteziaren emaitza ari** (1); **arteziaren eragile** (1); **arteziaren eragile mugatzaileetako** (1); **arteziaren eta zuzentasunarengatik** (1); **bere arteziaren emaitza** (1); **duen arteziaren eragile** (1); **izango duen arteziaren** (1); **sukaldariaren arteziaren berri** (1)
>
> **arteziari asko zor** (1); **arteziari dagozkion gauza** (1); **lanari eta arteziari** (1); **pentsatzeko arteziari dagozkion** (1)
>
> **arteziarik gabe egiten** (1)
>
> **guztiak arteziaz gainditzen** (1)

---

artezilari *iz* lehergailuetan espezialista den teknikaria.

Poliziak **artezilariak** erabili zituen hilkutxa aztertzeko, lehergailuren bat izan zezakeela pentsatuta. Berria - Mundua

Artezilariek bonbak indargabetu zituzten. Berria - Mundua

Baionako lehergailua **artezilariek** kontrolpean eztandarazi zuten. Berria - Euskal Herria

Artezilarien esku utzi zuten zakua, baina barruan ez zegoen lehergairik, gatza baizik. Berria - Euskal Herria

Artezilariek kutxa aztertu zuten eta lehergairik ez zuela ohartu ziren. Berria - Euskal Herria

Atzo **artezilarien** buruak argi utzi zuen bere adituetako inork ez zuela esan Titadyne zela Madrilen baliatutakoa. Berria - Mundua

Ertzaintzaren **artezilariek** kontrolpean zartarazi zuten lehergailua 17: 45 inguruan, eta minutu gutxira errepideak berriro zabaldu zituzten. Berria - Euskal Herria

Kurdistango Irbil hiritik hurbil, aldiz, lehergailu bat indargabetzeko ahaleginetan ari zen **artezilari** bat hil zen eta beste bat zauritu, bonbak eztanda eginda. Berria - Harian

Bai badugu guk irudimena (fantasia esan beharko nuke) artifizieroak **artezilari** bihurtzen dituguneanl! Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **poliziaren artezilariek** (3)

---

artezkari *(corpusean ez dago; ETCn **154** agerraldi) iz* zuzendaria.

Artezkari ingelesaren diskurtsoaren ondoren, "bretoieraz eskertu beharko nizueke" hitz fratsesekin hasi eta, frantses hutsean egin du Renanek hitzalditxo osoa, bretoieraz errituaeko agurren bat ere galdu gabe. ETC-literatura, saiakera

Kongresuaren **artezkariak** kongresuan landuko diren ildo nagusiak azaldu zituen. ETC-prentsa

Kongresuko **artezkariak** jardun zuen aurkezpen lanetan, eta argi utzi zuen zertara datorren gogoetarako jardunaldiak egitea. ETC-prentsa

Kongresuaren **artezkariak** larunbatean aitortu zuen txosten ofizialak ez zuela jakin UEUk euskal unibertsitatearen inguruan daukan benetako iritzia biltzen eta, beharbada, horregatik sortu zela hainbesteko eztabaida. ETC-prentsa

Hori horrela, Ertzaintzaren **artezkariei** abisatu zieten. ETC-prentsa

Jean Baptiste Lorda "599 Catering" taldeko lehendakaria da eta Gratien Etchebehere **artezkaria**, talde horrek du euskal jatetxeko kargua. ETC-prentsa

Estatu demokratikoetan zuzenbide penalak zenbait printzipio edo irizpide **artezkariri** jarraitu behar die, eta horien artean ultima ratio printzipioa dugu. ETC-prentsa

Organo **artezkariak** osatuta, institutuak euskararen eta euskal kultura kanpora zabaltzeari ekingo dio. ETC-prentsa

Gazteak gauzatu duen delituaren astuntasuna epaitzeko irizpide **artezkaria** izango ez bada ere, egindako egitatearen eta ezarriko den erantzunaren arteko proportziozkotasunak zera ekarri beharko du: egitate berberagatik helduari ezarriko litzaiokeen zigorra baino arinagoa izatea gazteari ezartzen zaiona. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretan irizpide **artezkaria** liburu honen helburu pedagogikoa izan da, zuzenbide-ikasketak egin nahi dituen eta hasi berria den ikaslearentzat ezinbestekoak diren arazoei ekiteko oinarrizko kasuei lehentasuna emanez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Batez besteko negoziazio-trukaneurria, edo, hala denean, batez besteko trukaneurri ponderatuaren batez bestekoa egiaztatuko da bigarren mailako merkatu horren organo **artezkariak** luzatutako ziurtagiriaren bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Legearen ariora, epailea da prozeduraren organo **artezkaria**, eta, horregatik, aurreko zuzenbidean zituen ahalmenen eremua zabaldu da, bai eta ahalmenok egikaritzeko zuhurtzia ere, baina, betiere, ebazpen ziodunak eman beharko ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

artezkaritza *iz* zuzendaritza.

Burtsa-**artezkaritza** handi horietako batek bat ere dirurik ez duela jakitera ematen duenean, jende zintzoak poza hartu behar du... Lopez de Arana

---

artezketa *(corpusean ez dago; ETCn **112** agerraldi)* **1** *iz* piezak leuntzea, dagozkien neurri zehatzetara egokitzearren; korronte alternoa korronte zuzen bihurtzea.

Mekanikan, pieza baten perdoi dimentsional eta geometriko, eta gainazal-perdoi zehatzak lortzeko egiten den azkeneko mekanizazio prozesuari **artezketa** deritzo. ETC-entziklopedia

Txartaketan erabilitako erremintak harri edo barreta urratzaileak dira; erreminta hauekin gainazal doiagoak lortzen dira eta **artezketako** markak ezabatzen dira. ETC-entziklopedia

Artezketa egiteko eraren arabera, uhin erdikoak -korronte alternoko erdiziklo bakarra erabiltzen dutenak- edo uhin osokoak -ziklo osoa erabiltzen dutenak- izan daitezke. ETC-entziklopedia

Bilakatze hori gauzatzeko prozesuari **artezketa** deritzo, eta horretarako diodoa erabiltzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

6. p-n juntura bateko **artezketa** -prozesua azaldu, elektroien eta zuloen mugimenduan oinarrituz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Josune Iraolak (2004) lehen aldiz euskararen transmisioaren **artezketa** kualitatiboa hirigune erdaldundu batean egin zuen, Pasaian. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jada XVI. mendean baitzeuden bai zigorra bai **artezketa** jomuga zituzten itxialdi-eremuak, horietako batzuk "kartzelak" zehatz-mehatz ez izan arren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zertaz hitz egiten da tailerrean, kuadrillan edo familian hitz egiten den gauzez? Ez, laneko gauzez ari zara, gauza teknikoez: ximurdura, **artezketa**. ETC-prentsa

2 ***artezketa lau*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Sakonerazko **artezketa laua** (ingelesez, "Creep-feed grinding" (CFG)) Alemanian sortu zen 1950ko hamarkadan Edmund eta Gerhard Lang-en eskutik. ETC-entziklopedia

---

artezki *adlag* zuzenki.

-Eta, horrela, hamaika pena eta trabailuren artean, Urbiaindik alde egin behar izan genian, desterrurat... -erraiten zigun aitona Nikolasek, hatsarreko desgrazia haiek **artezki** eta xuxentki berari bizitzea egokitu izan balitzaizkio bezala. Joan Mari Irigoien

Badakizu, aitaren egin gabe eta arnasa sakoneraino hartu gabe esan ezin diren horietakoak, "bazeniezazkigukete", "geniezazkinakeen" edo "zentxezkidakete" bezalakoak, aski kuttunak euskara bere maneran adindurik ikasi dutenentzat, eta **"artezki** eta zuzenki gauzak deklaratzen dituztenak hain manera ederrean. Pello Salaburu

---

artezle *(corpusean ez dago; ETCn **44** agerraldi)* *iz* artezten duena.

Izan ere, zabalkundea da, ikerketa eta kontserbazioarekin batera, Iruña Okako Oppidum-a dela-eta egindako Plan **Artezlearen** filosofiaren ardatz nagusietakoa. ETC-prentsa

Diodo **artezleak**: diodorik erabilienak edo arruntenak dira hauek. ETC-zientzia, zuzenbidea

X erreaktantziaren balioa bat dator transformadorearen dispertsio-erreaktantziarekin, eta EL (ez-lineal) blokean sartzen dira 11.8 irudiko zub **artezlea**, XF erreaktantzia eta Vz tentsioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tentsio-aldaketa egiteko transformadorea erabiltzen da, eta korronte alternotik zuzenera pasatzeko diodoz egindako zirkuitu **artezleak** erabiltzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erregidorea edo **artezlea** platoan egin behar diren lan guztien arduraduna da, beste modu batera esanda, errealizadorearen begiak, belarriak eta ahoa da. ETC-entziklopedia

Artezle molekularrak (aviram eta ratner) bere graneleko aurkako alderdien mimikak dira. ETC-entziklopedia

Faktura **artezleek** aurreko faktura bat edo gehiagoren zuzenketak dokumentatzen dituzte, edo baita produktuen itzulketak, ontziak eta bilgarriak edo bolumenagatiko komisioak. ETC-entziklopedia

---

artezpide zuzenbidea, bakoitzari dagokiona emanaz, zuzentasunez jokatuz aritzeko era. *iz*

Jaurlaritzak Aralarko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatu arren, Lurralde Antolaketako **Artezpideek** babes bereziko guneetan turismo intentsiborik ez dutela onartzen nabarmendu zuen Karrerak. Berria - Euskal Herria

---

arteztarau *iz* zuzentaraua.

Legebiltzarrak onartutako **arteztarau** Prestige-rekin gertatutakoaren ondorio izan da. Berria - Gaiak

Dokumentuaren arabera, bestalde, herrialdeen arteko elkarlana bultzatu behar da **arteztarau** betetzen dela bermatzeko. Berria - Gaiak

2001an kaleratu zuen Ascroftek eutanasiaren gaineko **arteztarau**. Berria - Gaiak

Duela gutxi Europako Batasunak onartu duen **arteztarauak** eskatzen du hondakinak uretara botatzen dituzten ontziak zigortzea. Berria - Gaiak

---

arteztasun *iz* zuzentasuna.

Geziburua zorroztarriaz zorroztu, ziria hortzen artean sakatuz zuzendu, gero gezi hori arkuan ipini eta **arteztasuna** frogatzen zuen. Joseba Sarrionandia

---

arteztu, artez(tu), artezten **1** du *ad* zuzendu, zuzen jarri.

Aho-ertzeko zimur-imintzioa ez baitzitzaion sekula **artezten**. Mirentxu Larrañaga

Merkatuko ikuskatzaileak dira gehienak, poltsikoan aztertzen dituzte arraindegi eta harategietako kalitate-kontrolak, han **artezten** dira okerrak, malgutu zorrotzak. Berria - Kultura

Eta, horrela, eni xuxendu hitz haien ondotik amari **artezten** zitzaiola, aitak erran zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Urrunean ageri dira argi urdinak, trafikoa **artezten**. Urtzi Urrutikoeetxea

Emakume haien bizitzak kontrolatu zituen, euren izaerak **artezteraino**, eta gauza horiek agian gaiztoak ziren. Ibon Uribarri

Nellie hurbildu zitzaion eta gorbata **arteztu** zion. Lopez de Arana

Tira, zatoz nirekin, egoera **arteztuko** dugu eta. Joanes Urkixo

Azkeneko aldia da, esan zuen, eta alboratuta zegoen gorbataren korapiloa **arteztu** zion. Bego Montorio

Kokainak **arteztu** dio alkoholak okertutako berbakera. Urtzi Urrutikoeetxea

Eta behako hura **arteztu** zidan, nehoiz ere ahantziko ez dudan behakoa, tristea eta arraia, aldi berean. Joan Mari Irigoien

Horrenbestez, egun ontziteria hainbeste hobetu delarik, antzeak komunikatu egiten direlarik, antzeari esker naturaren eta antzearen beraren akatsak **arteztu** egiten direlarik, hain alde handia bada, zer izan behar zuen antzinako itsasontzi haien kasuan? Iñaki Iñurrieta

Han joanen zarete denak okerka, bidea ezin **arteztuz**. Joseba Sarrionandia

Burua **arteztu** nuenean, ingurura begiratu nuen. Edorta Jimenez

Goitik behera garbitzen ari zen bere burua, aurreko hankak bihurrituz eta **arteztuz**, moko itxurako buruaren gaina kontu handiz igurtziz, norbait eskuak xaboitzen ari denean bezala. Lopez de Arana

Bere burua zuzenduz, hutsegiteak **arteztuz**, bere formalizazioak estutuz, ezta horrela ere ez da askatzen diskurtsoa ideologiarekin duen harremanaz. Xabier Arregi

2 da *ad*

Arteztu egin zen bezeroa sartzen ikustean, eta saltzaile ernearen ohiko irribarrearekin hartu zuen. Patxi Zubizarreta

Bero zen lanaren eraginez, eta lepoa apur bat **arteztu** zitzaion, maskur sortu berriek min arina ematen zioten esku-ahurretan, eta egunak irribarre egiten zuen. Jose Morales

Gu biok azken batean mutiko gazteak ginela esan zuen, apur apurka **arteztuko** ginela. Joseba Sarrionandia

3 *artezteko makina*

Alor honetan, MCCk autogintza eta aeronautikarako **artezteko makina** egiten dituen Erresuma Batuko Newall enpresa erosi zuen. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arteztu zion** (3); **arteztu zuen** (3); **berriro arteztu** (3)

---

artifize *iz* adierazten denaren autore edo egilea.

Euskal eta andaluz folklorearen **artifizea**, funtsean beratsua (jende jitojudutar komiko sentimentaloidea) izan dela ikusteko, ez baita antropologian doktore izan beharrik. Patziku Perurena

---

artifizial 1 *izond* gizakiak egina.

Gauza ederra litzateke giltzurrun naturalaren tamaina bertsuko baliokide **artifiziala** izatea, baina gaur egungo tekniken irispidetik oso urrun geratzen da posibilitate hori. Irene Aldasoro

Iruzur hau ez da **artifiziala**, baizik arrazoimen arruntaren erabat berezkoa den iruzurra. Ibon Uribarri

-Inteligentzia **artifiziala** hain hedatua den Mars planetara eroan nazazu. Itxaro Borda

Hori argi izan behar dugu, badirelako gurean euskara batua **"artifiziala"** eta literatura euskalkiak "naturalak" direla uste dutenak. Koldo Zuazo

"Legearen harlauzak Jainkoak berak eginak ziren", horrek esan nahi du naturalak zirela, eta ez **artifizialak**, gauza natural guztiei "Jainkoaren egintzak" esaten zaielako. Xabier Kintana

-Badakit, bai, haxixa, opioa, konfitura berdea, paradisu **artifizialak**. Josu Zabaleta

Filosofia analitiko anglosaxoiak konputagailuen adimen **artifizialaren** eta gizakiaren adimen naturala ere aztertu ditu. Askoren artean

Hizkuntza **artifizial** horietako bat egiten duen gizonak bere esku du hizkuntza hori, gizarteratzen ez duen artean; baina bere helburua betetzen hasten den unetik, eta horrenbestez, mundu guztiaren gauza bihurtzen den unetik, ez da bere kontrolpean egongo. Isabel Arrigain

Gaur egun erraz kritika daiteke perspektiba naturala eta perspektiba **artifiziala** nahasten dituen perspektibaren kritika bat. Josu Zabaleta

Bihotzetik datorren odolaren parte bat, oxigenagailutik (edo birika **artifizialetik**) pasatu, eta gorputzera itzultzen da. Irene Aldasoro

Urte horretan hasi ziren erabiltzen ospitaletan bihotz **artifiziala**. Pello Salaburu

Giltzurrun **artifiziala** handia eta baldarra da, material sintetikoek ezin baitute berdindu organo naturalaren errendimendua. Irene Aldasoro

Bretton Woods-eko sistemaren hondamendia baino lehenago ere, inflazio-diferentzialak eta gerraren ondoren finkatutako parekotasun sarritan **artifizialak**, truke-tasa errealen aldaketa garrantzitsuen eragileak izan ziren. Koro Navarro

Sudur **artifiziala** egiteko saioek ez dute batere emaitza onik izan. Irene Aldasoro

Jantzirik, etxerik eta berokuntza **artifizialik** ez zen garaietan, 21 °C inguruko batez besteko tenperatura zuten eskualdeetan sortu ziren lehenengo zibilizazioak, eta horixe da, gaur egun ere, gizakiarentzako tenperaturarik onena. Irene Aldasoro

Filibuster doktorearen su **artifizialak**, berorik gabe bustita pizten direnak. Iñaki Mendiguren

Neonezko gau **artifizialetan**, / maitasuna puzzle bat zen. Jasone Osoro

Bere 8.400 kilometro karratuko zabalerarekin, munduko laku **artifizialik** handiena da Volta aintzira. Berria - Mundua

Jantzirik, etxerik eta berokuntza **artifizialik** ez zen garaietan, 21 °C inguruko batez besteko tenperatura zuten eskualdeetan sortu ziren lehenengo zibilizazioak, eta horixe da, gaur egun ere, gizakiarentzako tenperaturarik onena. Irene Aldasoro

2 *adimen artifizial*

Robotikaren eta **adimen artifizialaren** gaineko oinarri teorikoak jaso zituzten, eta robotak eraiki zituzten. Berria - Gaiak

Globalizazioaren gakoak teleteknologiak dira (satelitea, diru elektronikoa, informatika, Internet, sare telematikoak, teknologia digitala, CD-Rom, DVD, errealitate birtuala, **adimen artifiziala**, bioinformatika eta beste horrenbeste). Askoren artean

Vision androidea da, eta gizaki fanatiko-ek ez dute harreman hori begi onez ikusten, "**adimen artifizialak** zilegitu eta humanoak baztertuko dituelakoan» Berria - Mundua

3 *argi artifizial*

Ikusgaia eguzkiak edo **argi artifizial** bortitzak zuzenean jotzean gertatzen zitzaion hori bereziki. Xabier Olarra

Gertatzen da heroiak brontzezko arrazaren bizitza gaiztoak bizi eta heriotza ankerrez hil zirela, eta halaber Valhalla zulo zikin bat gertatzen da, **argi artifizialak** itzali eta eguneko argi soilaz borroka iskanbilatsu eta festa zaratatsuen idealizazio poetiko hau aztertzen dugunean. Iñaki Mendiguren

Jantokia ikusi bezain laster konturatu zen, alajaina, aurrerantzean **argi artifizialpean** gosaldu beharko zutela; berak biziki gorroto zuen zerbait. Mirentxu Larrañaga

Argi artifizialarekin azaleko letra doratuek nabarmenagoak ematen zuten. Bernardo Atxaga

Gaueko **argi artifizialak** espezie ugariengan eragiten du, eta animalia askoren jokabidea aldatzen. Berria - Gaiak

Argi naturala baliatzen ahalegindu ginen, ahalik eta **argi artifizial** gutxiago erabiltzen. Berria - Kultura

4 *arnasketa artifizial*

Eta horrela, Meharra lehena iritsi zen, baina gero **arnasketa artifiziala** egin behar izan zioten izerditan itota zegoelako. Koldo Biguri

5 *belar artifizial*

Mailari eutsi dioten arren, Goierriko klubean kezkatuta daude Udalak egin duen **belar artifizialeko** zelaiaren proiektuarekin. Berria - Kirola

Belar artifizialeko zelai bat, mediku gune bat eta beste hainbat azpiegitura eraikitzea aurreikusi ditu Eibarrek. Berria - Kirola

Xumea, zortzi figura txikiz osatutakoa, **belar artifizial** berde-berdez inguratua. Xabier Etxabe

Plastikozko puf erraldoi batek ipuinetako nanoaren tronoa irudikatzen zuen eta egurrezko bitxiloreak hazten ziren nonahi, **belar artifizialez** estalitako lurrean sustraituak

baleude bezala. Jasone Osoro

6 *birika artifizial*

Bihotzetik datorren odolaren parte bat, oxigenagailutik (edo **birika artifizialetik**) pasatu, eta gorputzera itzultzen da. Irene Aldasoro

7 *bizi artifizial*

Eta auzi hori dela eta, **Bizi Artifiziala** deritzan zientzia helburu batekin eratu zen, horrela biziaren zientzia egon ez dadin adibide bakar horri lotuta, hots, biologia orokorra edo unibertsala eraikitzeko asmoarekin. Askoren artean

8 *elur artifizial*

Gero eta elur gutxiago egiten duenez, gero eta gehiago erabiltzen da **elur artifiziala** eta horrek asko areagotu du ur kontsumoa, WWFk ondorioztatu duenez. Berria - Gaiak

9 *ernalketa artifizial*

Bilboko klinika batera jo zuen bikoteak, umea **ernalketa artifizialaren** bidez eduki ahal izateko. Berria - Euskal Herria

10 *erradioaktibitate artifizial* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Haien alaba Irene Joliot-Curiek eta haren senar Jean Frederic Joliotek ere Kimika arloko Nobela irabazi zuten, **erradioaktibitate artifiziala** aurkitzeagatik. ETC-prentsa

Atomoen transmutazio-fenomenoak aztertu ondoren, Irének eta Frédéric Joliotek **erradioaktibitate artifiziala** aurkitu dute. ETC-literatura, saiakera

Gaur egun, **erradioaktibitate artifizialaren** eremuan egindako aurkikuntza berriei esker, aldatu egin da erabat. ETC-literatura, saiakera

11 *eskalada artifizial* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Eskalada artifiziala nagusi zen garai eta eremuan, estilo librea posible zela frogatuta. ETC-prentsa

Kirol **eskalada artifizialeko** nahiz harkaitzeko munduko zerrendetan lehen postuan dago, eta baita eskalada ardatz duten aldizkari eta Internet orriek osatutako sailkapenetan ere. ETC-prentsa

Erosotasunerako eta kirol eskaladarako joera nagusi den garaiotan, bestelako erronkak aukeratu zalea da: horma handiak, **eskalada artifiziala** eta bakardadea. ETC-prentsa

Horma handien eta **eskalada artifizialaren** zale dira Castresana eta Novellon, eta neguaren bakardadeak eta gogortasunak erakartzen ditu. ETC-prentsa

Eskalada artifiziala praktikatzeko aukera bikaina egongo da gaurtik igandera arte Peña Karria (Gaubea, Araba) eskalada eremuan. ETC-prentsa

Adolfok ez du izan merezi duen esker onik, baina pareta handietako **eskalada artifizialean** nazioarteko erreferentzia izan da, sokada ezberdinetan eta bakarkakoan, beti era jatorrean. ETC-prentsa

Eskalada artifizialeko aurrerakuntzak teknologiaren eta zientziaren arrakastaren ondorio gisa irudikatuko ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

12 *euli artifizial* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Euli artfiziala edo arrantzarako eulia arrantza-apeu mota bat da, normalean euli-arrantza kirolean erabiltzen dena (nahiz eta beste kanaberarekiko arrantza modu batzuetan ere erabil daitekeen). ETC-entziklopedia

Egungo gizarteko botereek euliarekin egiten dute arrantza, **euli artifizialarekin**, baina hori denik eta txarrena da, arrantzaleak bere burua engainatzen duelako beitaren egiazkotasunaz den bezainbatean. ETC-prentsa

Uztailaren 31 bitarte, arrantzaleek egindako **euli artifizialen** eta koilaratxoen artean ibili beharko dute amuarrainek ibaietan gora eta behera. ETC-prentsa

13 *euri artifizial*

Hori jakingo balu, hodei kargatu bat presentatu orduko, jaitsi ahal izango luke, alegia, euria kendu ahal izango lioke, euritan noiz eta nola lehertzen den jakingo balu, hau da, **euri artifiziala** posible eta kontu erraza izango litzateke. Pello Zabala

Euri artifiziala sortzeko sistema bat garatzen ari da Bruselako Unibertsitate Libreko eta Israelgo Ben Gurion Unibertsitateko zientzialari talde bat. Berria - Gaiak

Horregatik, **euri artifiziala** eragiteko asmoa dute Txinako agintariek, egoera arintze aldera; zilarrezko ioduroz Pekin gainean dauden hodeiak bonbardatuko dituzte, euria egin dezan. Berria - Gaiak

14 *giltzurrun artifizial*

Arratoientzat sortutako **giltzurrun artifizialak** odola iragazi eta gernua sortzeko gai izan dira, Estatu Batuetako ikertzaileen arabera; horregatik, geroan transplantearen ordezko ona izan daitezkeela uste dute. Berria - Gaiak

Giltzurrun artifiziala handia eta baldarra da, material sintetikoek ezin baitute berdindu organo naturalaren errendimendua. Irene Aldasoro

15 *hautespen artifizial* *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi)*

Hautespen artifizialarekin, gizakiak espezie bateko ereduzko animalia edo landareak banatzen ditu ugaltze helburu ezberdinetarako, ezaugarrien arabera. ETC-entziklopedia

Hautespen artifizial edo kulturalean (horra kontzeptu bat aurreratu) hautesleak hautesten du, baina zerk edo nork hautesten du hautespen naturalean? ETC-zientzia, zuzenbidea

Drosophila ozpin-euliaren ehunka ezaugarrietatik, sexu-proportzioa da, hain zuzen, luzaroan **hautespen artifizialpean** eduki eta inolako eraginik jasan ez duten ezaugarri bakar bietariko bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Guztietan begi-bistakoena, **hautespen artifiziala** da -animalien eta landareen hazkuntza-, zeinak, Darwinek sumatu bezala, parekotasun handia baitu hautespen naturalarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Askatzen ez diren errakien aldeko **hautespen artifizialean** oinarritutako zereal modernoak etxekotzeari buruzko artikulu laburra. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hautespen artifiziala deitu zion horri, eta milaka urtez jardunak dira gizakiak horretan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortaz, bat egingo luke naturaren legeekin gizarteak **hautespen artifizial** bat egiteak, eta banako antisozialak eta desberdinak suntsitzeak. ETC-literatura, saiakera

Faktore horiek dira, besteak beste, hautespen naturala, **hautespen artifiziala**, organismo zehatz horri dagokion gurutzaketa-modua, inguruneareekiko eta inguru berean bizi diren beste organismoekiko lotura ETC-literatura, saiakera

Hautespen artifiziala aplikatu zen orduan, eta inguruneresioari hala erantzuten zioten banakoak hartu ziren ugalketarako. ETC-literatura, saiakera

Hori egiteko ordez, lehen kapituluan, luze kontatzen du gure landare eta animalia etxekotuak nola sortu ziren gizakiok egindako **hautespen artifizialaren** bitartez. ETC-literatura, saiakera

16 *hibernazio artifizial* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Anestesia eta **hibernazio artifizialean** berritzaile, klorpromazina erabiltzearen bultzadan dago bere lorpen handiena, psikiatrian. ETC-entziklopedia

17 *horizonte artifizial* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Zerumarra edo batzuetan ingelesezko "skyline" hiri baten egitura eta eraikin garaienek (batez ere etxe orratzek) silueta edo ikuspegi orokorra da, sarri honen ikur bilakatzen dena. Hiri baten egiturek sortutako **horizonte artifizial** gisa ere deskriba daiteke. ETC-entziklopedia

18 *ikusmen artifizial*

Arreta handia eskaini zaio **ikusmen artifizialaren** posibilitateari; haren arabera, zuri-beltzeko eredu nahiko sinple batek emango luke pertsona itsu bati laguntzeko informazio baliagarria. Irene Aldasoro

19 *inteligentzia artifizial*

-Inteligentzia artifiziala hain hedatua den Mars planetara eroan nazazu. Itxaro Borda

Konputagailua neurozientziekin lotzen dugunean **inteligentzia artifizialaz** hitz egiten hasiko gara. Pello Salaburu

20 *intseminazio artifizial*

Bazen Ann Arbor-eko aldirietan **intseminazio artifizialeko** klinika bat, eta hiru lagun haiek erabaki zuten beren zerbitzuak eskainiko zizkiotela esperma-bankuari, emaile gisa. Oskar Arana

Kontua da mespretxu handiz esan zidala ea ez al nuen uste umea **intseminazio artifizialaren** bidez sortua izan balitz, mundu zabalean jakingo zela, mediku-sekretu guztien

gainetik ere. Ramon Saizarbitoria

Bai Jose Luis bai ni neu ere ugalkorrak izan arren, ospitaleko kide baten laguntzaz, eta sexu-hautaketaren kontrako legediari iruzur eginez, **intseminazio artifizialaren** bitartez sortu genuen gure ume bakarra, mutila izango zela ziurtatuz; Antton jarri genion, nire aitaren omenez. Iban Zaldua

Umea bikotearen barruan, **intseminazio artifizialaren** bidez egin arren, legeak ama biologikoa baino ez zuen aintzat hartzen. Berria - Harian

Kasu honetan Dickson andreak 48 urte dituenez eta beste hiru urte falta direnez senarra libre uzteko, **intseminazio artifiziala** da bikoteak umea izateko azken aukera. Berria - Gaiak

Espainiako Estatuan **intseminazio artifizialari** buruz egin den azken ikerketak dio haurdun geratzeko emaile anonimoen semen bankuetara joaten diren emakumeen % 10ekez dutela bikotekiderik. Luis Elberdin

21 *larru artifizial*

Feriara doazela, Victorine, aurpegia makillaje merkeaz koloreturik, lepoan azeri **larru artifiziala** daramala, aurretik doa Gillesekin irrika. Pablo Sastre

22 *satelite artifizial* Lurretik jaurtiriko ibilgailua, planeta baten satelite bihurtzen dena.

Eta gela barruan erridikulua sentitu naiz karikaturaren moduan, **satelite artifizialaren** moduan, trapu zaharraren moduan, postal turistikoaren moduan. Joseba Sarrionandia

23 *su artifizial* *pl* su festa.

Egitarauan, egun guziez 18etan zezen lasterrak, 20.45etan **su artifizialak** Kontxan, eta 23.30etan kontzertuak urririk. Herria

Txapliguak, txinpart eta garrez osatutako egiazko **su artifizialak** ezkerreko zerumuga osoan. Urtzi Urrutikoetxea

Ekitaldi hau Donibane Garaziko zitadelan burutuko da, bideo, kontzertu eta **su artifizialekin** . Herria

Hala nola gertatzen den **su artifizialetako** ziriekin, zenbait mahainguru piztu egiten dira erabat itzaliak ematen dutenean, eta, itxura guztien arabera, gurea mota zoragarri horretakoa zen. Bernardo Atxaga

24 *uharte artifizial*

-Geroxago, hartu dugun taxian gidariak esplikatu digun bezala, aireportu hori munduko haundienetarikoa da eta **uharte artifizial** baten gainean dute eraiki. Ramuntxo Etxeberri

Pasaiako eskualdean bizi den herritar gisa, ordea, **uharte artifizialaren** proiektua nahiago dut. Berria - Euskal Herria

Uharte artifiziala ! Ramuntxo Etxeberri

25 *zahartzapen artifizial* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Horri zahartzapen natural esaten zaio; **zahartzapen artifiziala** tenperatura altuetan gauzatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

26 *zuntz artifizial* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Batzuk zuntz naturalez -hala nola kotoia eta zeta-, eta beste batzuk, **zuntz artifizialez** -adibidez, poliesterra-. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beira zuntza **zuntz artifizial** inorganikoa da, osaera kimikoa beira arruntaren antzekoa duena. ETC-entziklopedia

Klixe gisa, zetazko edo **zuntz artifizialezko** xafla porotsu bat erabiltzen da inprimatzeko. ETC-entziklopedia

Zuntz akriliko: **Zuntz artifizial** edo sintetikoa. ETC-entziklopedia

XIX. mendean agertu ziren malgukidun lehenak, 1865ean; Europan 30eko hamarkadan hedatu ziren, eta baita **zuntz artifizialez** egindakoak ere. ETC-prentsa

Saihestu **zuntz artifizialeko** azpiko arropak. ETC-prentsa

Hasieran, lastoa lehengaitzat hartuta, **zuntz artifiziala** sortzeko eraiki zen fabrika hura. ETC-prentsa

Beste kasu batzuetan, dermatitisaren arrazoia lehendik nahiko ongi jasaten zen material edo substantzia bat izan daiteke, **zuntz artifizialez** osatutako ehunetan gertatzen den bezala. ETC-prentsa

Zuntz artifizialek lurrinketa (transpirazioa) eragozten dute. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artifizial batean (4); **artifizial baten** (7); **bihotz artifizial bat** (3); **guztiz artifizial** (3); **hizkuntza artifizial** (5); **su artifizial** (6)

artifiziala da (11); **artifiziala dela** (6); **artifiziala egin** (3); **artifiziala zen** (3); **bihotz artifiziala** (3); **bizi forma artifiziala** (3); **da artifiziala** (3); **euri artifiziala** (5); **forma artifiziala sortzeko** (3); **giltzurrun artifiziala** (6); **hezur artifiziala** (4); **intseminazio artifiziala** (7)

argi artifizialak (3); **artifizialak dira** (4); **giltzurrun artifizialak** (5); **su artifizialak** (12)

adimen artifizialaren (3); **artifizialaren arteko** (3); **ernalkuntza artifizialaren bitartez** (3); **intseminazio artifizialaren bidez** (3)

giza ugaltze artifizialari (3); **ugaltze artifizialari buruzko** (3)

modu artifizialean (7)

belar artifizialeko zelaia (3)

su artifizialen (3)

---

artifizialdu *izond* artifizial bihurtu dena.

1994tik 2004ra, %20 handitu da lurzoru **artifizialduaren** azalera. Berria - Euskal Herria

---

artifizializazio *iz* artifizial bihurtzea.

Lurzoruaren **artifizializazioaren** intentsitatea. Berria - Euskal Herria

2003an, okerrerako joera izan du EAEko ingurumenak sei alor hauetan: airearen kalitatean (3), airera egindako isurpen kutsakorretan (4), klima aldaketa eragiten duten gasen isurketan (7), hondakinen sorreran (8), energia kontsumoan (14) eta lurzoruaren okupazio eta **artifizializazioan** (16). Berria - Euskal Herria

---

artifizialkeria *iz* artifizialtasun gaitzesgarria.

Honek arazoak sortzen ditu, ezagunak diren ingelesezko took /tuk/ bezalako kasuetan, non nekez lot daitekeen, **artifizialkerian** erori gabe, hitz honen atalik lehen aldiko morfemarekin. Itziar Laka

Euskarari dagokionean, eta hizkuntzalaria naizen aldetik, beldurra ematen dit **artifizialkerian** erortzeak. Ana Urkiza

Bere kezka nagusiak, euskararen bilakaera, **artifizialkerian** ez erortzea eta ulergarritasunaren aldeko apustua egitea dira, hau da, edukiaren gainetik forma kontuetan ez galtzea. Ana Urkiza

---

artifizialki *iz* era artifizialean.

Malthusek populazioaren hazkundea **artifizialki** muga zitekeela uste zuen, baina ohartu zen hori ezin zitekeela hitzez soilik lortu. Xabier Olarra

Hori aise egiaztatzen da atropina emanda (begi-barrena aztertu edo zaintzeko eman ohi da) begi-ninia **artifizialki** handitzen denean, adibidez: ez da "argiago" ikusten, "lausoago" baizik. Josu Zabaleta

Hormigoia kendu eta, **artifizialki** bada ere, zati horretan landarediak egiten du jada lehen hormigoiak egiten zuen lana. Berria - Euskal Herria

Lau urtez beraz, **artifizialki** eutsi zaio eskualde honetako herrialdeen lehiakortasunari. Koro Navarro

Japoniari aurrena, eta Asiako herrialde industrializatu berriei eta haien atzetik datozenei gero, "gizarte-dumping" bat egitea salatu zaie, hau da, soldata-kostuak eta gizarte-

babesa maila **artifizialki** apaletan atxikitzea. Koro Navarro

Eguneroko dietan, berriz, **artifizialki** ekoitzitako arrain eta itsaskitik geroz eta gehiago, produktu horren gehien-gehiena lehorrean ekoitzi beharko baita. Edorta Agirre

Artifizialki eraldatutako elikagaien onurak azpimarratu ditu Paul Christou zientzialari estatubatuarrak Iruñean **Artifizialki** intseminatzeko ere espermatozoideak ezinbestekoak baitira. Berria - Gaiak

Esan dezadan, besterik gabe, umetandik arrantzurako daukadan zaletasunari esker aurkitu nuela gizakia **artifizialki** ernaltzeko metodoa. Hasier Etxeberria

Hemen, giza arrazoimenaren fenomeno berria azaltzen da, hots, erabat berezkoa den antitetika, inork hausnartu eta **artifizialki** ehuntzeko beharrik ez duena. Ibon Uribarri

Urna batzuk atxikitzean, heldulekuak hautsi egiten ziren hatzen pean, eta alboak zabaldu, lore **artifizialki** margotuak erortzen utziz. Juan Garzia

Aspaldian kexu dira estatubatuarrak, Txinak yuana **artifizialki** mantentzen duelako merke. Berria - Ekonomia

Ez zuten aurkezpenik egin (salbuespen pare bat salbu), ez ziren lotan geratu afinatzeko orduan (ondoko kideak kantatzen zuen bitartean bete zuten lan hori) eta kantuak ez ziren **artifizialki** luzatu. Berria - Kultura

Adibidez, medikuek ziurtasun osoz esaten badute ez daukadala sendabiderik, jar dezaket ez nazatela makina batera konektatu, **artifizialki** nire bizitza luzatzeko. Berria - Harian

Eta zelan suminduko luketen egungo alderdi politikoen amarruek, edo gobernuek botoen edo diruaren amoreagatik **artifizialki** pizturiko guduek! Markos Zapiain

Herrien Psikologia nazional hau, bere aurretiazkoetan **artifizialki** unitario den legez (aiurri edo arima espainola hau eta hori da), ondorioetan erraz bihurtzen da politikoki unitarista (espainol onak hau eta hori izan behar du; edo, kasuan, euskaldun onak). Joxe Azurmendi

Azken batean, Tsin She Huang-tiren ideala -estatu unibertsal bat, toki-administrazioko unitate **artifizialki** antolatuen hierarkiaren bidez erditik kontrolatua- gauzatu egin zen berriro ere. Iñaki Mendiguren

Ugalketa eta sexualitatea bereiztea, jaiotzak kontrolatzea, esperma izoztuz emakumeak **"artifizialki"** ernaltzea, in vitro ernalkuntzak lortzea, bere amarena ez den umetoki batean garatzea enbrioia, eta abar. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artifizialki luzatu** (3)

---

artifizialtasun *iz* artifiziala denaren nolakotasuna.

Sistema horren kodeketan ahaleginduz inoiz -ez alferrik- ordena "frantses" edo "espainol" bat sartzen, baina horren berritasuna eta **artifizialtasuna**, azkenean, antzinako sistema arautzaile itxiarekin haserre zeudela ikusten zen. Santiago Iruretagoiena

Euskalki bateko eta besteko ezaugarriak, inolako neurri eta orekarik gabe nahasteak, anabasa besterik ez zekarren, eta **artifizialtasuna** izan zen, hain zuzen, Koldo Mitxelenak (1962) eta Luis Villasantek (1963) ikusi zioten akatsa. Koldo Zuazo

Aurreko etapetan presa eta **artifizialtasuna** hobetsi direnez, hoberantz omen goaz. Edorta Agirre

Estatu horien **artifizialtasuna**, baina, nabarmen-nabarmena da Txaden. Berria - Mundua

Ohartzen nintzen hitzaldien eta beste lan unibertsitario askoren **artifizialtasunaz**, baina nolabait harro sentitzen nintzen egiten nituenean erakusten nuen trebeziagatik, eta iruditzen zitzaidan hura zela ordaindu behar nuen prezioa "liburuen munduan egoteko", nire gurasoek zioten bezala, eta nire etorkizuna haiei eskaintzeko. Joseba Urteaga

Errealitatearen muga gainditzen duten argazkiak egiten ditu, **"artifizialtasunera** zenbat eta gehiago hurreratu, orduan eta hobeto ikus dezakedalako errealitatea". Berria - Kultura

---

artifiziero *iz* lehergailuak erabiltzen espezialista den pertsona.

Bai badugu guk irudimena (fantasia esan beharko nuke) **artifizieroak** artezilari bihurtzen ditugunean! Pello Salaburu

Dena bukatu zenean, bi **artifiziero** iritsi ziren nonbaitetik eta lehertarazi egin zituzten herritik urrun aurkitutako bonbak, edo indargabetu etxeren batetik hurbil egoteagatik lehertarazi ezin zirenak. Koldo Biguri

---

artifizio *iz* trikimailua, engainagarria; antzea adierazten duen bidea; naturaltasun falta adierazten duen gauza.

Teknika **artifizioa** omen, mundua aurkaritzat harturik mundua bera akabatzeko. Joxe Austin Arrieta

Ezabatu egin duzu antzinako legeen **artifizioa**, xalotasunari trabak ezartzea beste asmorik ez baitzuten. Iñaki Iñurrieta

Egileak, horrela, hausnarketa egin nahi izan du, eta transmititu, naturaren eta **artifizioaren** arteko harremanaz. Berria - Kultura

Aurpegia aparrez ongi beteta ez duen bitartean ez dio ispiluari aurrez aurre begiratzen, gaur ilea tindatu zuelako damuturik bizi da, bere **artifizioen** preso bezala dago. Jon Alonso

Egileak, horrela, hausnarketa egin nahi izan du, eta transmititu, naturaren eta **artifizioaren** arteko harremanaz. Berria - Kultura

Trebe dena, **artifizioetan** jantzia da? Pello Salaburu

Antzez baliatu haiz errimaz, aliterazioaz, asonantziaz, jakinduria ederreko erretorikaren **artifizioez**, neurrien aldikatze zuhurraz. Juan Garzia

Danielak bularretako zuria zeraman jantzita, sinplea, inolako **artifiziorik** gabea, azalera itsasten diren horietakoa. Jasone Osoro

Handiuste dogmatiko haien bazterketari esker argitasuna eta **artifiziorik** gabeko uste osoa lortzen dute. Ibon Uribarri

Santuaren apaltasunak pasatzen utzi zuen **artifizioz** beteriko eta egiaz husturiko hitz-jasa hura. Jon Alonso

Urteetan zehar denbora joanaren hondamendia ezkutatu zuten tindagaiak bota eta ondorengo egunetan, Raimundo Silvak, lehen zurtoina noiz azalduko zain dagoen hazi-ereile inozoa bailitzan, arreta obsesiboaz behatzen zuen, goizetik gauera, bere ileen erroa, bere biloen egia azaltzeak, **artifizioz** biluzturik, eragingo zion kolpearen espektatiba morbidoki dastatuz. Jon Alonso

Zer ziren haren ateraldi ustez distiratsuak, Jainkoaren argitik eta Haren bidetik desbideratzen ninduten **artifiziozko** suak baizik? Joan Mari Irigoien

Errekurtso **artifiziozko** hori gizartean bene-benetakotzat hartzen diren balio moral ustez egiaztatuen euskarri da. Berria - Kultura

Hori egia dela ikusteko, brontzezko eolipilak erabiltzen dira, asmakizun **artifiziozko** horiek erabiliz azaleratzen baitira jainkoen zeruko lege ezkutukoak. Santiago Iruretagoiena

Biak ziren **artifizio** huts, baina Hester Prynnek arima zuen. Anjel Lertxundi

Teknika **artifizio** hutsa da, errepikapen bat, gauza hila berez. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artifiziorik gabe** (3)

---

artifizios *izond* amarrutsua.

Adibide txiki bat baizik ez emateagatik, ilea tindatzearen artean, dena da, azken finean, banitate kontua, ongi emateko nahia, bai alderdi fisikoan eta bai alderdi moralean ere, oraindik bertatik imajina daiteke etorkizuneko garaia, non giza-jokabidea izango baita, oso-osorik, **artifizios**, sintzeritatea, berezkotasuna eta xalotasuna, nortasunaren kualitate eder eta argitsu horiek. Jon Alonso

---

artifizioso *izond* naturaltasunik edo lañotasunik ez duena.

Oraindik bertatik imajina daiteke etorkizuneko garaia, non giza-jokabidea izango baita, oso-osorik, **artifizios** , sintzeritatea, berezkotasuna eta xalotasuna, nortasunaren kualitate eder eta argitsu horiek. Jon Alonso

Isidre Nonellen Cabeza, Hermen Anglada-Camarasaren aristokraziaren erretratu **"artifiziosoak** " eta Daniel Vazquez Diazen La muerte de un torero, "kubismoaren aztarnak erakusten dituen gai klasikoko koadroa", eragin horren isla zuzena dira. Berria - Kultura

---

artifiziotsu *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi) izond* artifizio handikoa.

Orduan Hara Kei hizketan hasi zen, bere hizkuntzan, letania-doinuz, nolabait itxuratutako ahots gogaikarriro **artifiziotsu** batez. ETC-literatura, saiakera

Honen aurrean, bigarren zeregina -hots, estatu jakituriarena-, nolabait esatearren, bere kasa ebazten da, denentzat begi bistakoa da, **artifiziotsua** den guztia lotsagarri bihurtzen du, eta, bitartean, zuzenean xedera eramaten du. ETC-literatura, saiakera

Aipatu honen obren edukia kitzikagaitasun nerbioso erikor bat -musika **artifiziotsu** eta konplexu horrek bizkortua- landu duten pertsonei baino ez zaie ulergarri. ETC-literatura, saiakera

Nire Ezkaban irakurritako Eneidaren pasarte haren oroitzapena, beraz, osteko irakurraldi baten emaitza dateke, hau da, arratsalde haren benetako txingarrei gainjarritako eranskin **artifiziotsu** bat. ETC-literatura, saiakera

Bere arrakasta luzatzea modu **artifiziotsuan** tentaldi egingarria zen. ETC-prentsa

Meritu handia inondik inora, batez ere kontuan izanda Lorcaren jatorrizko testuek daukaten zailtasuna eta esaldi **artifiziotsuen** ugaritasun ikaragarria. ETC-prentsa

Manierismoko eskulturak ezaugarri duen forma, giza irudiei mugimendu birakari bihurrikatu eta **artifiziotsua** ematen diona; esate baterako, Joan Boloniakoaren Sabinen bahiketa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Prentsa-araubide **artifiziotsuaren** ondorioz, ez zen ia aldaketarik izan egunkari kopuruan: hamaika 1940 arte, eta hamar (berak beti) 1940tik 1975 arte. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

artifiziozko *izlag* artifiziala.

Artifiziozko mihi bat jarri didate, baina nik nire hitza esaten jarraitu dut beti. Berria - Kultura

Atzoko gau-festan, berriz, **artifiziozko** suak ere izan genituen, ustekabean: aditu, bederen, aditu genituen, nahiz eta, ikusi, deus guti... Joan Mari Irigoien

Hori egia dela ikusteko, brontzezko eolipilak erabiltzen dira, asmakizun **artifiziozko** horiek erabiliz azaleratzen baitira jainkoen zeruko lege ezkutukoak. Santiago Iruretagoiena

Baina hain zuzen ere garai horretan aurkitzen ditugu oso sektore adierazgarrietan erlijio-esperientziaren lekuko behinenak, zeinean **artifiziozko** kontzeptualizazio hori guztia Ezerezean disolbatzen baita. Joan Mari Lekuona

Gazteria modernoaren gaitzik nabariena horrexetan sumatzen dut: nahiz eta arrunt desmaneratuak iruditu, **artifiziozko** manerari ematen dioten inportantzia osoan. Patziku Perurena

---

artiko 1 *izond* Ipar polokoa, Ipar poloari edo inguruko lurraldeei dagokiena.

Siberia, Alaska eta beste gune **artikoetan** izan dira tenperatura igoera handienak, hau da hiri handiek sortzen duten berotik urrun. Berria - Gaiak

Ondorioz, ur izoztu **artikoetan** hondoratu zen, baina bere aitarekiko amorruz ez zen. Berria - Gaiak

Ipar-mendebaldeko Amerikaren antza du floran: makal basoak, izei ilunak, urki asko eta zohikaztegi zoragarriak, loreak eta tximeleta **artikoak** . Berria - Kultura

2 *iz* (lehen letra larriz) Ozeano Artikoa.

Artikoa epeltzen denean aukera berriak sortzen dira, jakina. Berria - Gaiak

Ikertzaileen arabera, **Artikoa** da munduan azkarren berotzen ari den eremua. Berria - Gaiak

Barentseko itsasoa **Artikoan** dago, Eskandinavia eta Errusiaren artean. Berria - Gaiak

Bizimodua erabat aldatu beharko dute **Artikoaren** inguruko lau milioi biztanlek, datozen hamarkadotan eskualde honetako itsasoko izotza urtuz joango delako. Berria - Gaiak

Artikoko herri indigenek Kyotoko Protokoloa sinatzeko exijitu diote Bushi. Berria - Gaiak

Bistan da **Artikoko** itsasoak urtzea sekulako aukeratzat ikusten dutela han petrolioa eta gasa ustiatu nahi dituzten konpainiek. Berria - Gaiak

Artikoko hartz gehienek 100 substantzia kimikotik gora dituzte gorputzean, eta oraingoz, ez dute kutsadura horri aurre egiteko mekanismorik garatu. Berria - Gaiak

Artikoko izotza desagertzea onuratzat duten konpainiek Washingtonengan duten eragina ikusita, nola konbentzitu AEBak ituna sinatzeko? Berria - Gaiak

Artikoko Klima Aldaketaren Eraginaren Balioztapenaren (ACIA) presidenteordea da Paal Prestrud. Berria - Gaiak

3 *aliota artiko* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Aliota artikoa ("Gavia arctica") Aliota Gaviidae familiako hegaztia da, mendebaldeko Alaskan eta Eurasian bizi dena. ETC-entziklopedia

Baita **aliota artiko** bat ere, egun Euskal Herrian halakorik ez badago ere, garai hartan ugaria baitzen, indusketek frogatu dutenez. ETC-prentsa

4 *amuarrain artiko* *(corpusean ez dago; ETCn **140** agerraldi)*

Amuarrain artikoa ("Salvelinus alpinus") Salmonidae familiako arraina da, Artikoan, azpiartikoan eta antzeko eremuetan bizi dena. ETC-entziklopedia

Staubik berak errekasto ziztrina zirudien, eta amuarrainak, ibai-izokinak eta **amuarrain artikoak** dozenaka hiltzen ziren. ETC-literatura, saiakera

Larrutan bildu eta izoztutako hiru **amuarrain artiko** (Salvelinus alpinus) hurrenez hurren jarri, azpia karibu baten urdaileko edukiaz koipeztatu eta izotz-geruza fin batez estalita, leraren patin bihurtzen ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aintzira oso ezaguna da arrantza munduan; izan ere, bertan, amuarrain marroi eta **amuarrain artiko** handienak arrantzatzera uda partean etorri ohi diren arrantzaleen kopurua handia da. ETC-entziklopedia

Ylijokiko ur garbietan, **amuarrain artikoak** , amuarrain marroiak eta izokinak arrantzatu daitezke. ETC-entziklopedia

5 *Artikoko azeri* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Ikusgai jarri dituzten animalia gehienak bitxiak eta ederrak dira, baina protagonista jakin batzuk ditu aurtengo erakusketak, Euskal Herrian inon aurkitu ezin daitezkeen animaliak, hain zuzen ere: **Artikoko azeria** , Vietnamgo txerria, Kamerungo ardia, Asiako faisaiak, titi tximinoak, ahuntz nanoa edota Australiako loroak, besteak beste. ETC-prentsa

6 *azeri artiko* *(corpusean ez dago; ETCn **93** agerraldi)*

Azeri artikoa ("Vulpes lagopus") txakurraren familiako haragijale txikia da. ETC-entziklopedia

Ugaztunen taldea, erbinude zuri eta erbinude arruntek, azeri arrunt azeri gorriek, igaraba igarabek eta 2003. urtetik babestuak dauden **azeri artikoek** osatzen dute. ETC-entziklopedia

Erosleak larruak sailkatu bitartean, Jim begi zabalik ibiltzen zen biltegian barrena, Alaskako otso zuri, **azeri artiko** , katamotz eta jatun larruak ukituz. ETC-literatura, saiakera

Kolore tasunaz ari bagara, esate baterako, terminoa ia nulua izango da poloko hartz zuriarentzat (ehunetik ehun kolore bakarrekoa), apur bat handiagoa **azeri artikoarentzat** (zuria neguan eta iluna udan) eta askoz handiagoa mihi-arrainarentzat edo olagarroarentzat (gai baita inguruabarren arabera aldatzeko kolorea). ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *erbi artiko*

Goilautadatik jaitsita, itsasertzeko lautadetan **erbi artikoak** harrapa zitzaketen, eta zorte pixka batekin karibu bat edo beste ere bai. J.M. Olaizola "Txiliku"

8 ***klima artiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Kokapen geografiko berezia du, eta **klima artikoak** baldintzatzen du herrialdeko bizimodua. ETC-prentsa

Ingurune artikoarekin borrokatzeko ausardiagatik eskimalek ordaindu behar izan zuten zigorra beren bizitza **klima artikoaren** urteko ziklora zurrun moldatu beharra izan da. ETC-literatura, saiakera

Ezkutuaren iparraldean, 60º baino gehiagoko latitudeetan, aire-masa polar kontinentalen erdigunean, **klima artikoa** dago, negu luze eta gogorrekoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 ***Ozeano Artiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

2020ko negua buruan duela, iruditzen zaio iparrerago hasi beharko lukeela bidea, Tuktoyaktuken, **Ozeano artikoaren** ertzean. ETC-prentsa

Europako mendebaldeko itsasoak hotzak dira, dauden latitudean daudelako eta **Ozeano Artiko** Glaziarra hurbil dutelako, baina, era berean, Golkoko itsaslasterrak epeltzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mitologiak dioenez, jainko hau erraldoi baten itxurakoa zen eta ez zuen oso harreman esturik jendearekin, **Ozeano artikoko** ur izoztuetan bizitzera behartu zutela ere aipatzen da. ETC-entziklopedia

Asiak **Ozeano Artikoa**, Ozeano Barea, Indiako ozeanoa eta Mediterraneo itsasoak inguraturik dago. ETC-entziklopedia

Australiako ekialdeko kosta 1770ean baino ez zen esploratu; eta **Ozeano Artiko** eta Antartikoa XIX. mendera arte ez ziren esploratu. ETC-entziklopedia

Ozeano artikoaren sare alimentarioak sinpletzat kontzideratzen dira, hau da, pauso gutxi daude organismo txikietatik, predatzaile handietara arte. ETC-entziklopedia

Honek 1816 eta 1855 artean **Ozeano Artiko** eta Itsaso Beltza artean zeuden 265 lekuetan neurtu eta Lurra poloetan zapalduta zegoela baieztatu zuen. ETC-entziklopedia

10 ***zikloi artiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Zikloi polarra edo **zikloi artikoa**. ETC-entziklopedia

11 ***zirkulu artiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Zirkulu artikoak, eguneko eguzki izpien muga egiten du udako solstizioan eta neguko solstizioan aldiz, gaueko eguzki izpien muga. ETC-entziklopedia

Zientzialari batzuk konturatu dira Alaska eta **Zirkulu Artikoa** duela 50 urte baino berdeago daudela. ETC-prentsa

Errusiak, Kanadak, AEBek, Danimarkak eta Norvegiak jarri dituzte haien begiak **Zirkulu Artikoan**. ETC-prentsa

Rovaniemi hiritik (Laponia) kilometro gutxira dauka Bizar Zurik bere etxalde magikoa, haur askoren ametsetako lekua, **zirkulu artikoan** bertan. ETC-prentsa

Solstizioan, Eguzkia ez da sartzen 24 orduetan **zirkulu artikoan**. ETC-prentsa

Eta Ipar Amerikan erresistentziarik txikieneko bideak azkenean polorantz eraman zuen oihanen ipar-zerrendaz harantzago, bere destinoa kultura eskimala sortzen aurkitzeko **Zirkulu Artikoaren** erronkari erantzunez. ETC-literatura, saiakera

Bizitzan zehar sentituko duzun oro zure aurretik bizi izandako guzti-guztiek sentitu izan dute, haitzuloetako gizakia izan edo astronauta izan, Gobi desertuan bizi edo **zirkulu artikoan** bizi. ETC-literatura, saiakera

Klima hotzean bizi da, **Zirkulu Artikoan**, eta isolamendu-maila altuari esker saihets dezake klima horretan jasan lezakeen gehiegizko bero-galera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina, esan dudanez, inoiz ez da aurkitu mamutaren hezurrik Holstongo gatzagez hegoalderago, eta iparraldera jota, berriz, **zirkulu artikoan** ere aurkitu izan dituzte. ETC-literatura, saiakera

12 ***zirkulu polar artiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **138** agerraldi)*

Zirkulu polar artikoa munduko bost paralelo paralelo nagusietakoa da, zehazki 66º 33' 38" Ipar latitudean dagoena. ETC-entziklopedia

Zirkulu polar artikoan, Eguzkiak soilik Ipar zeruertza ukitzen du. ETC-entziklopedia

Biodibertsitate handia du **zirkulu polar artikoak**. ETC-prentsa

Zirkulu polar artikoan bizi den etnia baten literatura da. ETC-prentsa

Neguko hilabeteetan eguzki argi gutxi izaten da **zirkulu polar artikoaren** gainetik dauden latitudeetan. ETC-prentsa

---

artikular *(corpusean ez dago; ETCn **161** agerraldi)* **1** *iz* anatomian, artikulazioari dagokiona.

Baina larrialdia erreuma **artikularragatik** izan zen. ETC-literatura, saiakera

Gure historia partikularretan nahiz **artikularretan** ia beti gertatzen baitzaigu gauza bera. ETC-literatura, saiakera

Inkesta horretan 10.000 emakumek hartu zuten parte, eta Euskal Herriaren zonari dagozkion emaitzek frogatzen dutenez emakumea gehien kezkatzen duten arriskuetako bat Alzheimerra da, eta atzetik datoz min **artikular** eta muskularrak, bularreko eta umetokiko minbizia, eta baita gaixotasun kardiobaskularrak ere. ETC-prentsa

M. nostikoa: eskumako mokorrean artoplastia; eskumako eskuan Dupuytreren gaixotasuna; koxartrosia; hipertentsio arteriala eta fibrilazio **artikularra** ere bai; diabetikoa da, neuropatia diabetikoa du eta hiperurizemia eta miopia. ETC-prentsa

Hezurren gainazal **artikularrak** estaltzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Humeroaren buruaren atzeratzeak edo min lokal batek behe-atzealdeko kapsula **artikularreko** lesioa adierazten dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tratamendua mina, gogortasun **artikularra**, erreflexu basomotorea eta hezur lesio eta **artikularrak** saihestera bideraturik dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, aparatu bat sistema multzo bat da, funtzio berdina dutena baina zabalagoa; adibidez, lokomozio-aparatua (sistema muskularrak, eskeletikoak, **artikularrak** eta nerbiosoak osatua) edo zirkulazio-aparatua (sistema kardiobaskularrak eta sistema linfatikoak osatua). ETC-zientzia, zuzenbidea

Hezurren malformazioek buruko mina eta min **artikularrak** eragin ditzake. ETC-entziklopedia

Pieza bakarreko kopak UHMWPE (pisu molekular ultra altuko polietilenoa) edo metalezkoak dira eta gainazal **artikular** mekanizatua daukate koparen barrutik, eta ez daukate blokeo mekanismorik forrua bere lekuan mantentzeko. ETC-entziklopedia

Beso-euskarri edo sorbalda-geldiarazle bat erabiltzen da aste gutxi batzuetan, antiinflamatorioak errezetatu eta kinesiterapia programa bati ekiten zaio, mugimendu **artikularren** maila handitzeko asmoz, indarra gutxinaka gutxinaka errekuperatuz. ETC-entziklopedia

2 ***hezur artikular*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Athleticeko kapitainak **hezur artikularra** handituta dauka, eta ezin izan da normaltasunez entrenatu azken egunotan —Valladoliden aurka deialditik at geratu zen—. ETC-prentsa

---

artikulatorio **1** *izond* fonetika eta fonologian, artikulazioari dagokiona.

Dudarik gabe, hurrenez hurreneko momentu **artikulatorio** horiek ez dira aurreko kasuan bezain berez gertatzen. Isabel Arrigain

Eremu **artikulatorio** erlatiboki txikian, bereizkuntza fonologiko garrantzitsuak gertatzen dira TXISTUKARI LEPOKARI eta APIKARIAK bereizten dituzten euskalkietan. Lourdes Oñederra

Bokalikoak dira trantsizio horren egitura akustiko eta ekoizte **artikulatorioa**, baita hiztunaren OHARMENA ere. Lourdes Oñederra

Nolabait esan liteke azenturik gabeko bokalak dakarren zailtasun **artikulatorio** eta oharmenezkoaren aurrean hizkuntzak amore ematen duen neurrian kontsonante taldeak ugalduko direla, hainbatik hainbatean. Lourdes Oñederra

Ahots bidearen beste muturrean ere, eztarrian behera alegia, sortzen dira ahoskunetzat jotzen diren ezaugarri **artikulatorioak**: hots GLOTALAK dira ahoskorden artean aire etena gertatzen bada beren ekoizpenean eta FARINGALAK, glotisetik ahora bitarteko hodian aireak igurtzi egiten badu. Lourdes Oñederra

Erraz esanda, fonetika **artikulatorioak** hotsaren ekoizpen anatomikoa aztertzen du, eta akustikoak hots ekoitzi horren EZAUGARRI fisikoak. Lourdes Oñederra

Ezinezkoa litzateke mugimendu **artikulatorio** sail honetan zatiak igartzea, ez baita jakiten non hasten den hots bat eta bestea non bukatzen. Isabel Arrigain

Hizketa-hotsak bi alde ditu beti -bata akustikoa eta bestea **artikulatorioa**. Lourdes Oñederra

Horiek guztiek artikulatorioki desberdinak dira eta ikuspuntu **artikulatoriotik** bakarrik elkar daitezke. Lourdes Oñederra

2 ***fonetika artikulatorio***

Erraz esanda, **fonetika artikulatorioak** hotsaren ekoizpen anatomikoa aztertzen du, eta akustikoak hots ekoitzi horren EZAUGARRI fisikoak. Lourdes Oñederra

---

artikulatorioki *adlag* artikulazioaren ikuspegitik.

Artikulatorioki zenbait bide erabil daitezke. Lourdes Oñederra

Artikulatorioki eta akustikoki oso antzekoak dira hotsok. Lourdes Oñederra

Horiek guztiek **artikulatorioki** desberdinak dira eta ikuspuntu artikulatoriotik bakarrik elkar daitezke. Lourdes Oñederra

Albokaria izanik markatuena, **artikulatorioki** konplexuena, ulertzekoa da hizkuntzak bat galtzekotan horixe galtzea. Lourdes Oñederra

---

artikulatu, artikula(tu), artikulatzen du *ad* bi osagarri edo gehiago batu, halako eran non higitzeko moduren bat baduten.

Suposatzen da, azkenik, historia bera **artikula** daitekeela batasun handitan -estadio edo faseetan- euren baitan dagokien euren kohesio-hastapena biltzen dutenak. Xabier Arregi

Iruñean islatu zen hezkuntza mugimendua **artikulatzea**, Euskal Herriak Bere Eskola egitasmoa ondo egituratu eta sendotu ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Lehena historikoki **artikulatzeak** ez du esan nahi 'gauzak ziren bezala' aitortzea. Joseba Zulaika

Aukera deskriptibo hau beste batzuen gainean **artikulatzen** da, ez da euretatik eratortzen. Xabier Arregi

EAJk aitzakia moduan honako argudioa erabili du: beste polo bat **artikulatzen** ari dela eta izaera estrategikoa izan dezakeela. Berria - Euskal Herria

Kasu baten, gai-multzo bera **artikulatzen** da bi kontzeptu-jokotatik hasita, bi azterketa motatatik, zeharo ezberdinak diren bi objektu eremutatik. Xabier Arregi

Subjektuen ekimenari ezarritako mugak baino gehiago izango da bera **artikulatzen** den eremua (bere erdigunea izan gabe), berak darabiltzan arauak (ez berak asmatutakoak eta berak ezta formulatutakoak ere) bere oinarria diren harremanak (izan gabe bera azken emaitza edo bateratze gunea). Xabier Arregi

Eskuarki, **artikulatzen** diren lekuaren arabera sailkatzen dira hotsak, baina gure abiapuntua bestelakoa izango da. Isabel Arrigain

Orduan, aitona Nikolas mintzatu zen, kementsu, hitzak ongi **artikulatzen** zituela. Joan Mari Irigoien

Lehena historikoki **artikulatzeak** ez du esan nahi 'gauzak ziren bezala' aitortzea. Joseba Zulaika

Zinematografiako apailua ezin uler daiteke teknikaren eta estetikaren (forma filmikoen) alorrak eskari ideologiko batekin **artikulatzen** dituen zentzuan analizatzen ez bada. Josu Zabaleta

Datorren martxoaren 14ko hauteskundak "erantzuna **artikulatzeko** aukera" dira, Batasunakoaren esanetan. Berria - Euskal Herria

Ulergarria baita ekimena indar-erlazio politiko berrien bila, sindikatuek auzi hau beren indarra **artikulatzeko** aldaketa politikoen ikur garatu nahi izana. Iñaki Heras

Irakek agerian utzi ditu AEBek demokrazia sortzeko, koalizio iraunkorrak eratzeko edo erantzun instituzionalak **artikulatzeko** dituzten mugak. Berria - Mundua

Arkeologiak diskurtso baten iragazkortasunaren maila eta era aztertzen ditu: berak hastapen bat ematen du diskurtso hori **artikulatzeko** jarraitutako gertaeren kateaketa batean; halaber definitzen ditu gertaerak enuntziatuetan transkribatzeko operadoreak. Xabier Arregi

Software bat programatu du pertsonen mugimenduak **artikulatzeko**. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artikulatu ahal izateko** (3); **artikulatu bat** (3); **artikulatu behar** (5); **testu artikulatu** (3)
> **artikulatua dela** (4)
> **artikulatuak izan** (3)
> **nazio hitza artikulatuan** (5)
> **artikulatzen da** (4); **artikulatzen den** (4); **artikulatzen diren** (8); **gainean artikulatzen** (4)

---

artikulatzaile *izond* artikulatzen duena.

Hitz egitean, hiztunaren gorputzak, mugimendu **artikulatzaile** zenbaiten bidez, hots-UHINAK sortzen ditu, entzulearen belarriak jasoko dituenak (hiztuna bera ere entzule dela ezin ahaztu dugu hemen). Lourdes Oñederra

FONOESTILISTIKAREN eremuan ahultze edo lenitioek hotsen ebakera ahalegin **artikulatzailearen** aldetik errazten dutela gogoan hartuta, ulertzen da lenitio BILAKABIDEAK maiztasun handiagoz gertatzea hizketa arduragabeetan. Lourdes Oñederra

Egia da, halaber, herskaritzat hartzen dugun horretan isilunea ere gertatzen dela: hain zuzen ere, organo **artikulatzaileek** elkar ukituz aireari bidea ixten dioten bitartean ez da airerik ateratzen; bitarte horretan, teknikoki ez da ez hotsik ez zaratarik ateratzen. Lourdes Oñederra

---

artikulatze *iz* bi osagarri edo gehiago batzea, halako eran non higitzeko moduren bat baduten.

Estatuaren konstituzioaren bigarren artikuluak elearen **artikulatzea** desartikulatzen dit. Itxaro Borda

---

artikulazino ik **artikulazio**.

---

artikulazio *(orobat **artikulazino** g.er. eta **artikulazione** g.er.)* **1** *iz* artikulatzea; bi piezaren, eta bereziki bi hezurren, lotura.

Fonologia, aldiz, denboratik at dago, **artikulazioaren** mekanismoak bere hartan irauten duelako beti. Isabel Arrigain

Praktika hegemonikoak gizarte osaezin eta irekiaren **artikulazioak** dira. Joseba Zulaika

Hori ikusteak eraman izan ditu zenbait autore zinemaren narrazio-prozedura bereziak (bi narrazio mailaren, planoaren mailaren eta plano sekuentziaren mailaren **artikulazioa**) bestelako arteetan betidanik izan diren narrazio-prozedurak berriro hartu eta haiei jarraitzea baizik ez zirela esatera. Josu Zabaleta

Gobernuak, astronomoak bezala, urtekako neurketaz arduratzen dira, baita errepikatzen den urte-zikloaren **artikulazioaz** ere. Iñaki Mendiguren

Sukarra, anemia, **artikulazioetako** mina, eta burmuineko odol hodien buxatzea dira gaitzaren zantzurik ohikoenak. Berria - Gaiak

Beruna urtzen ari denean haizea sortzen da, eta horren lurruna gorputzaren **artikulazioetan** sartzen da. Santiago Iruretagoiena

Odolean, bada beti azido urikoa, eta hark eratzen dituen konposatuak pilatu egiten dira batzuetan -kristal gisa horiek ere- buruko edo oinetako **artikulazioetan**. Irene Aldasoro

Hots eta hots-**bilkuren** artikulazioa errazteko. Lourdes Oñederra

Aski izan zaio abian jartzea nekea ahazteko, muskuluak eta **artikulazioak** suspertu zaizkiola ohartzeko. Pello Lizarralde

Orobat ditu gizakiak ere lau lohadar, bost errai, bederatzi zulo eta hirurehun eta hirurogei **artikulazio**. Joxerra Garzia

2 (izenondoekin)

Giltzadura hau ahoko **artikulazio** nagusia da: barail hezurra eta burua lotzen dituen **artikulazioa**. Berria - Euskal Herria

Batasuna **artikulazio** hegemoniko beti partzial baten ondorio izan beharrean, osoa eta betikoa dela onartzen da horrela. Joseba Zulaika

Hizkuntza guztiak desberdinak dira **artikulazio** bikoitz komunaren egiturari dagokionez. Askoren artean

Aldaketa ez da lortu "azentu silabikoa" ezartzean, baizik eta bere **artikulazio** esplosiboa **artikulazio** inplosibo bilakatzean. Isabel Arrigain

Oztopo batzuei itzuri egiteko, azpimarra daiteke edozein **artikulazio** jarraitu, -f-arena bezalakoa, adibidez-, bi indarren emaitza dela. Isabel Arrigain

Artikulazio aldekaria; mihia sabaiaren aurreko aldean ezartzen da, baina ezker-eskubietan irekiera bat utziaz. Isabel Arrigain

Artikulazio dardarkaria: mihia urrutiago ezartzen da sabaitik l-a egiten denean baino, baina dardaratu egiten da kolpe kopuru aldakor batez. Hizkuntza askotan, indoeuropar hizkuntzan batez ere, bi **artikulazio** gutural bereizten dira garbi, sabaikaria bata, f-h-an, eta belarea bestea i-an. Isabel Arrigain

Oro har, ahozko katean bitarteko faseak daude, tentsioak edo **artikulazio** jarraituak deituko ditugunak. Isabel Arrigain

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gihar eta **artikulazio** kopuru mugatu batekin, gorputzak mugimendu aukera ia mugagabea eskaintzen digu. Berria - Kultura

Artikulazio guneak, kokapena gorabehera, beti irekidura bat azaltzen du, hau da, irekiera maila bat, ondoko bi muturretako mugen artean. Isabel Arrigain

Artikulazio gunearen arabera hiru herskari mota bereizten dira batez ere: ezpainkaria (p,b,m), horzkaria (t,d,n), eta guturala (k,g,n (--). Isabel Arrigain

Lehenengo urteetan, hezurraren muturra (baita, hala dagokionean, **artikulazio**-azal leuna ere) kartilago-geruza mehe batek bereizten du hezurretik, eta heldutasuna iritsi eta hezurra guztiz osatu arte irauten du kartilago horrek. Irene Aldasoro

Kategoria horien barruan bakarrik banatuko ditugu fonemak mota desberdinetan, **artikulazio** lekuaren arabera. Isabel Arrigain

Zer **artikulazio**-mota har dezakete? Xabier Arregi

Ez da, beraz, ezintasun antropologikoa tartean dagoena, baizik eta aldaketa bat, **artikulazio** ohituretan. Isabel Arrigain

Berak gertaera diskurtsibo sail batzuen eta beste gertaera eraldaketa, mutazio eta prozesu sail batzuen arteko **artikulazio** hastapena planteatzen du. Xabier Arregi

Berak definitu nahi ditu **artikulazio**-sistema espezifikoak. Xabier Arregi

Mintzamenaren fluxuaren elementuen banaketa, propietateak eta egiturazko konbinazioak; fonemak eta ezaugarriak, uhin akustiko baten edo **artikulazio**-mugimendu batzuen segmentutzat harturik. Itziar Laka

Artikulazio mugimenduak lotzeko ahalbideak du mugatzen fonologia motak lotzeko askatasuna. Isabel Arrigain

Fonemak, elkar baldintzatzen duten inpresio akustikoen eta **artikulazio** mugimenduen batuketa dira. Isabel Arrigain

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hizkuntza ezin murriztu daiteke hotsetara, eta hotsa aho **artikulaziotik** banandu ere ez. Isabel Arrigain

Gorputzaren pisua halako lau edo bost da aldaka-**artikulazioak** egin behar duen indarra. Irene Aldasoro

5 ***sorbaldako artikulazio*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

-Hiru edo lau hilabeteko haurra gorputz-enborraren goiko erdia kontrolatzen hasten da, eta bere ikuseremuan jartzen zaion objekturantz luzatzen ditu eskuak, **sorbaldako artikulazioa** mugituz. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere artikulazio** (3); **bi artikulazio** (3); **edo artikulazio** (4)
> **aho artikulazioa** (3)
> **aho artikulazioaren** (3)

---

artikulazione ik **artikulazio**.

---

artikulo ik **artikulu**.

---

artikulotxo ik **artikulutxo**.

---

artikulu **1** *(orobat **artikulo** g.er.) iz* lege edo araudi baten zatia edo atala.

- Jeneralak Konstituzioko zortzigarren **artikulua** baizik ez du buruan -esaten zuen orduan Mikelek, algara artean. Jon Alonso

Testu horren 10. **artikuluaren** harian indargabeturik geratu ziren lurraldeetako arau mota guztiak. Andres Urrutia

Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo **artikuluak**). J.M. Olaizola "Txiliku"

Irailaren 23ko 88/1091 Erret Dekretu Legegilearen, hau da, Aurrekontu Lege Orokorraren Testu Bateratuaren 29-2 **artikuluan**, 1968ko Ekainaren 8ko Aginduarekin eta 1928ko Urtarrilaren 24ko EøD. Joseba Sarrionandia

Hauxe dio, esate baterako, 1894an sortutako Euskeldun Batzokija-ren Arautegiko 8. **artikuluak**: Koldo Zuazo

Ez du dinamita erabili, egia da, baina Anarkismoaren Errepresiorako eginiko legearen 1. **Artikuluan** dator tipifikatua bere delitua. Koldo Izagirre

1789ko Gizakien eta Hiritarren Eskubideen Deklarazioak ere jasotzen du ikuspegi hau, zera esaten baitu Legeari buruz ari delarik bere 6. **artikuluan**: hiritar orok du, pertsonalki edo beren ordezkarien bitartez, bere sorkuntzan parte hartzeko eskubidea", eta aurrerago, lehen aipaturiko 8. **artikuluan**, zera azpimarratzen du, "inor ezin da zigortu, delitua egin baino lehenago ezarri eta aldarrikatutako legearen arabera ez bada". Juan Martin Elexpuru

Aitasantuaren Batzordeak, halaber gureganaino iritsi den "Diktamen" batean, tesi inkriminatuak "In agro dominico" Joan XXII.aren Buldako 28 **artikuluetara** murriztu zituen. Joan Mari Lekuona

Gainera, araudian ez dago kasu hori aurreikusten duen **artikulurik**. Itziar Otegi

Izan dute, zorigaitzez, beste ondoriorik oraino, Frantziako Elizaren "Lau **Artikulu**" haiek, ez bakarrik Frantzian, Espainian eta edozein estatutan, baina bai ere, hain aspaldian, bere armeria, diplomazia, urreria eta estatu jantzi ospetsuak ezin aldatuz dabilen Erromako Elizaren buruzagi askoren kaskoetan. Piarres Xarriton

Hurrengo goizean, harrigarriro laster, memorandum bat iristen zaio errektoreordearen bulegotik (ikasle-arloa), eta bertan jakinarazten diote erreklamazio bat aurkeztu dutela beraren aurka unibertsitatearen jokabide-araubideko 3.1 **artikuluan** oinarrituta. Oskar Arana

18. **artikuluan** naturguneen babes eremuak arautzen ditu; Itoizko urtegiaren kaltea jasango zuten hiru naturguneak babes eremurik gabe uzten ditu; gainera, lege berria bultzatu zuten arrazoiei eskaini zieten tartean, Itoitzen kontrako sententziek eragindako araudia dela onartzen du". Edurne Elizondo

Esan bezala, politikari abertzaleak haren kontra agertu ziren, **artikuluak** zehazteko lotu behar izan ziren hariak han-hemenka hautsi baitziren bideko negoziazio eta elkarrizketetan, betiere militarrak eta frankistak, orain bat-batean demokraziara itzuliak, ezpatak eskuan zituztela ari baitziren paper ofizialak gainetik begira. Pello Salaburu

2 *iz* gramatikan, hainbat hizkuntzatan izenari laguntzen dion hitza edo atzizkia, esangurarik gabea baina hura nolabait mugatzen duena.

Muga-hitzak: **artikuluak**. Patxi Ezkiaga

Erdaraz ikasi genuen, jakina, eta aipatutako goitizen horiei guztiei **artikulua** jartzen genien aurretik: el Rino, el Matías, el Nerón, el Carusso, el Mangas, el Basilio... Joxerra Garzia

Komeni dena itzuli gabe utzi, **artikuluaz** gabetu eta horra euskarazko zerak norturik munduratu, erdara emagin dela. Iñaki Segurola

3 *iz* aldizkari edo egunkari batean argitaratzen den idatzi laburra.

Artikuluak Turkian berria zen estilo batean idazten zituen, gerora liburuetan bilduak. Fernando Rey

Izan ere, porrot egindako olerki saio batzuez bestalde, **artikuluak**, txostenak eta saiakera bat dira hark argitara eman zituen idazlanak. Jon Muñoz

"Erdiguneko defentsa lerroaren filosofia praktikoa" iritzi **artikulua** irakurtzeari ekin zionean, zeina Juan Gualberto Berjuela entrenatzaile ohi ospetsuak sakontzen baitzuen, lo geratu zen. Joxemari Iturralde

Iritzi **artikuluak**, gehienbat. Jokin Muñoz

Artikulua kopiatu egin nuen. Monika Etxebarria

Horra Abelek idatzi zuen **artikulua**, frantsesez idatzi ere. Jon Muñoz

Beste argazkia, Bizkaitarra aldizkarian idatziriko **artikuluengatik** kartzelan egondako garaiari dagokio. Ramon Saizarbitoria

-Egunkariko jaun bat! Bere **artikulua** idazten ari da hemen. Anton Garikano

Horrez gainera, nagusiaren **artikuluak** makinaz kopiatzen ditu eta beti ez bada ere askotan berak eroaten dizkio Zentsurari Buruzko Bulegora, Telefonicaren eraikinera. Edorta Jimenez

Artikulua idatzi nuen, eta, aldizkariaren zuzendaritzak onespena eman aurretik, Carlos Fuentesek Rulfori eraman zion. Juan Garzia

Orson Welles amerikar filmagileari dedikatu zioten **artikulua** ikusiz, irriz hasi zen. Ramuntxo Etxeberri

"Zenbat kobratuko duzu zuk biharko **artikuluagatik**", esan zion Ubanbek. Bernardo Atxaga

-Langelara, biharko **artikulua** amaitu behar dut eta -erantzun diot, oina alfonbran baldarki garbituz. Patxi Iturritegi

"Kirkilla" da **artikuluaren** izena, eta animalia txiki honen inguruko ohiturak ari da kontatzen: Xabier Mendiguren Elizegi

Artikulua berak idatziko ei zuen, baina nire kontakizunaren gainean soilik. Urtzi Urrutikoetxea

Artikuluan azaltzen den mundua da diferentea. Iñigo Aranbarri

Nire fitxa zeukaten, xehetasun guztiekin: bazekiten idazlea nintzela, bazekiten zer idazten nuen, nire prentsa **artikuluen** berri zehatza zuten, jakiteagatik, bazuten azken bost urteetan unibertsitatean sinatu nituen manifestuen berri ere. Harkaitz Cano

Urteetan emandako hitzaldi, ikastaro eta **artikuluetan** azaldutako iritzi eta gogoetak dira batzuk, guztiz berriak bestetzuk, denak ere jakingarri eta - lilura barkatzen badidazue - bere osoan txundigarri. Andoni Egaña

Artikuluak idatzi ohi nituen prentsan garai hartan, eta gai hori hartu nuen hizpide. Agurtzane Juanena

Berton, kronologikoki azaltzen dira norberak sarean jartzen dituen informazioak, iritziak, **artikuluak** eta estekarik interesgarrienak. Txema Ramirez de la Piscina

Artikulua idazterik ez zitzaidan bururatu ere egin une horretara arte, eta pentsatuko duzue nola nengoen. Xabier Olarra

Artikuluak hastetik buru irakurtzen nituen. Daniel Landart

García Márquezek aspalditik zuen asmo hori, **artikuluak** idatzi zituen Kawabatari buruz, eta behin kontakizun labur bat ere bai, azken liburuaren jatorria izan dena. Ibon Uribarri

Yvanek ez zidan **artikuluak** irakurtzen uzten, ez baitziren antza denez nirekin jatorregi portatzen; argazkiak ez omen ziren sekula nire aldeko gertatzen eta ahardi gizentzat nindukaten. Joxan Elosegi

Dantzazuloan oro zen argi-kliska burrunba Caponen **artikulua**. Lutxo Egia

Laburbilduaz, zeharo bat nator Jean Saroïhandy hizkuntzalariak, RIEV aldizkarian argitaratutako "Cours de langue basque" **artikuluan** (1920) kontu hauetaz idatzi zuenarekin: Koldo Zuazo

Nire arreta zuzpertuko zuen albisterik edo **artikulurik** ez. Anjel Lertxundi

Ezagutzak egiten ditut David Rousset-ekin, eta bereziki Benjamin Crémieux-rekin, Boris Klotz-ekin, gero, etxeratu-eta, honen **artikuluak** leituko bainituen "Vie intellectuelle aldizkarian. Marzel Etxehandi

-Eta zer pentsatu behar dugu - galdetu nuen -, Le Soleileko **artikuluaz**? Koro Navarro

Bakoitzak bere kasa asmatzen zituen testuez gain, taldean ere sortu genituen batzuk, hala nola horoskopoa, edo Ernesto Sabatori buruzko **artikulua**. Xabier Mendiguren Elizegi

Zaila, ETAren indargintza konkretua ere printzipio absolutuekin garaitu nahi izatea, Estatua kuestiona ezin litekeen zerbait sakratu bezala suposatzen ez bada behintzat ("printzipioz" zaila dirudielako, esate baterako, Euskadiren askatasunaren alde armak bidegabekoak izatea, askatasun haren aurka bidezkoak badira, Konstituzioko 8. **artikuluaren** arabera diren legez). Joxe Azurmendi

[...] da pobreen eta aberatsen arteko elkarbide bakarra, zeren, bertzela, materiaz denaz bezainbatean, Jainkoak goia eta behea egin baitzituen, zerua eta lurra, aberatsak eta pobreak, eta maila horiek ezin dira nahastu, ez mailen ordena aldatu, ez jaiotzako orduan, ez heriotzako **artikuluan**, ez bizitza osoan, zeren mudantzak beti baitira okerrera... eta zeren eskalapoi batzuetarik ez baitago txapinak ateratzerik. Joan Mari Irigoien

VI. **artikuluak** zehazki baimentzen zuen kapitalen mugimenduak kontrolatzea, nahitaezkotzat jotzen baitzen kontrol hori gerra arteko desordenen ondoren. Koro Navarro

Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo **artikuluak**). Xabier Mendiguren Elizegi

Hori bai, **artikulua** ebaki eta karpeta batean gorde nuen. Joan Mari Irigoien

Hainbat naziok ezarritako konpainia eta bankuek burutu zuten urrea eta zilarra zeinu gisa merketze hori; izan ere, zenbait fikzioz baliatuz, halatan biderkatu zituzten **artikuluen** zeinuak, non urreak eta zilarrak ez baitzuten eginkizun hori bete oso-osorik, eta balio gutxiagoko bihurtu baitziren. Iñaki Iñurrieta

Frantziako konstituzioaren bigarren **artikuluaz** zer erran? Itxaro Borda

- Erraza duk: hogeita bost urte ikurrina baimendu zenetik - esan zidan **artikulua** proposatuz -. Alberto Barandiaren

Azken aldian prentsarako **artikuluak** idazten zituen, baina argitaratzaileek, aho batez, atzera botatzen zizkioten eskuizkribu guztiak. Koro Navarro

Harryk Pertz Jariodunean gosaltzen zuen goizero, atsegin baitzuen han ostatu hartutako beste azti eta sorginei begira egotea; tartean baziren sorgintxo xelebreak, egun bateko erosketak egitera landatik etorriak; itxura adeitsuko aztiak, Antzaldaketa gaur aldizkarian argitaraturiko azken **artikuluaz** eztabaidan; itxura basatiko belagileak, ipotx iskanbilatsuak eta, behin, sorgin gaiztoaren itxura zuen batek, artilezko txano lodi batez burua estaltzen zuenak, platerkada bat gibel gordin eskatu zuen. Iñaki Mendiguren

El País Semanal-eko **artikuluxka** bat zen, sedukzioaz hitz egiten zuena: joko bat zela, eta ez dakit zer gehiago; lehenbiziko pausoa, batek erregalu bat egitea zela. Xabier Mendiguren Elizegi

Artikulua B.Vi. batek sinaturik dator. Edorta Jimenez

Egun argia / ez zuela hilerrira joan nahi esan zion Lucasek Mariari, nekatuta zegoela eta olinpiadak ikusi nahi zituela telebistan eta, astirik izanez gero, Annapurnako espedizioaren **artikulua** irakurriko zuela aldizkarian, erdia falta zitzaiola. Unai Elorriaga

Zure bilakaeraren lekuko harrituak izan ginen, Deian argitaratzen ez zizkizuten **artikuluak** Eginen hasi ziren agertzen. Xabier Montoia

Haren ikaslemu'el ibn Tibbon-ek hebreerara egindako itzulpena - Maimonek berak berrikusi eta zuzendu ondoren, harrezkero kanonikotzat gelditua -,----Moreh n-bukim izenburuarekin agertu zen (gaurko hebreeraz, **artikuluarekin**,-----moreh ha-n-bukim) hau da, 'alderraien gidaria' (--='pertsona'); euskal literaturan, gidari hitzak gida baino hedadura, erabilera handiagoa eta tradizio hobea duela kontuan izanda (cf. 1828.eko Erle gobernatzaillearen gidariya, adibidez), bigarren adiera honi jarraiki gatzaizkio. Xabier Kintana

Artikuluren batean erabiliko diat. Anjel Lertxundi

Ordurako egunkari nazia goitik behera irakurria nuen (**artikuluetako** batzuk bi aldiz) eta Nigel izeneko erretiratu batek Gerra Handiko bere balentrien berri xehea emana zidan. Alberto Ladron Arana

Ez, ez da halakorik gertatuko"; honela erantzuten dio galdetegiaren hamabigarren itemari, **artikuluaren** eranskinean ageri denez. Iban Zaldua

Ordena-ikurrak Horrelako zerrenda gehiago eta barregarriagoak AB-ren beste zenbait idazki eta **artikulutan** ageri dira. Xabier Olarra

Honenbestez zaituztet igortzen, zu, Kornelio jator hori, eta zu, Voltemand, mandatu hau diezaiozuen Norvegiako errege zaharrari eraman, honako hemen zehazturiko **artikuluok** biltzen duten honetaz landa harekin deusik tratatzeko beste areagoko eskurik ez duzuela. Juan Garzia

Elkartasun benetakoa izenburuarekin idazten du bere lehen **artikulua** Gesalibar goitizena erabiliz Ander Garatek: "Euzkotarrak biltzen ari dira. Jokin Urain

Dena den, 1989an, iduri luke Piarres Aintziartek lehen kolpetik aurkitu zuela berari zihoakion idazmoldea, hau ez baita ez olerkia, ez antzerkia, ez ipuina, ez eleberria, ez saioa, ez **artikulua**, ez eta ere haren aitak hain maite zuen bertsoa, baina bai euskal literaturan oraino guti erabili den "egunekoa" edo "egunaria". Piarres Aintziart

Artikuluez gain, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak kontratatutako iragarki bat ere bazen gehigarri hartan, "Euskal kazetarien lehen martiria"eta "Euskadiren eta euskararen aldeko aitzindaria" izan zenaren ohoretan ezarria. Juan Luis Zabala

Leesen **artikuluak** Syntactic Structures ahazteko aukera oro ezeztatu zuen. Itziar Laka

Modu berean etorri zen urte batzuk beranduago gure osaba, Orioko herri-aldizkarian apustuaren berri zekarren **artikulua** eskuan zuela. Xabier Etxabe

Baten bati deitu eta kultur talde haren inguruko **artikulua** inprobisatu egin beharko zuen. Fernando Morillo

Bainugelako bero lasaigarria gozoki lurrinduta zeukaten lababoaren ondoko apaletan paratutako krema, esne hidratagarri, jel-xaboi, ile-egokitzaile, laka, eta apainketarekin zerikusia zuten hainbat **artikuluk**, tapoiak gora eta behera begira zituztela. Iñaki Zabaleta

[...] ere, tesia egiten egon den bitartean arazoak nola formulatu behar diren ikasi duelako, besteek gai horretaz zer esan duten aztertu duelako, arazo hori ingurukoekin eztabaidatu duelako, tesiko datuak batzarretan kontrastatu dituelako (eta hau askotan oso gogorra izaten da), hortik denek eztabaidatzeko moduko **artikuluak** sortzen direlako, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Kenneth Whiteren **artikuluak** eta Lionel Seppoloni-renak perspektiba berriak ireki zizkidaten: mapa poetikoa aurkitu nuen. Ana Urkiza

Haren autobiografia eta **artikuluak** irakurriz, berehala sumatzen dugu zeinen bitxia, zeinen desberdina zen Temple haurtzaroan ume normalen aldean, zeinen urrun zegoen haiengandik.107 Sei hilabeterekin, bere amaren besoetan zurrun gelditzen hasi zen; hamar hilabeterekin, "animalia inguratuak bezala", atzaparraz harramazkak egiten. Xabier Olarra

2 **Ikus** artikuluaren azken oharretan laburzki ematen den bibliografia osoa. Piarres Xarriton

Ongi oroitzen zen **artikuluaz**: "Psikiatrek Ameriketako Estatu Batuetan besteek baino hiru aldiz gehiago garbitzen dituzte beren buruak eta emakume psikiatrek beste emakumeek baino lau bider gehiago. Gotzon Garate

Larriki garbitu behien garraiatzeko kamioietan metatu ziren kazetariak, beren **artikuluetarako** nahi adina argazki eta elkarrizketa eginik, Galarretako kaskora eramateko. Itxaro Borda

Bertako **artikulua** irakurtzen hasi nintzen bart eta, tira, zezen kontuak ez dira nire gogokoenak baina grazia zeukan kronistak, eta hurrengo orrialdean segitzen duenez, atzeko aldeari ere ekin nion. Josu Landa

Bere izena erabilia izan zen izenorde moduan postfrankismoaren aurreneko urteetan, Berriak aldizkari nafarrean **artikuluak** izenpetzeko. Josu Zabaleta

Baina egia zera zen, Napumoceno jauna gatza, ahuntz larruak eta tindatzeko likena esportatzen hasi zela, gatza Afriketara eta gainerakoa Europa aldera, eta trukean merkatu nazionalean salmenta segurua zuten **artikuluak** lortzen zituen, kaian bertan saldu edo irletako ontzitxoetara berehala pasatzen zirenak. Bego Montorio

Bertan, hare muino batera igoa, basamortuari harrotasunez begira dagoen lehoi ar bat ageri zen eta, **artikuluaren** egileak zioenez, Saharan barrena egindako bidaia hartan halako lehoi bat baino gehiago bistatu zuten (hitzez hitz zioenez, Panthera leo bat baino gehiago). Patxi Zubizarreta

Eta zergatik ez aitortu, pozik ikusten duk hire firma **artikuluen** oinean. Pedro Alberdi

Informazioaren trailerrak zapalduriko katuak dirudite gaur egungo hainbat eta hainbat **artikuluk** eta hitzaldik. Joxerra Garzia

Mendi tontorrera heltzean, segidako soldaduek orga geldiarazi zuten eta bentara sartu ziren, zinez luxuzko **artikulua** zen eta Gartziak Baionatik ekarrarazten zuen kafearen edateko. Elena Touyarou

Batzuk publizitate hutsa ziren, xaboiak, perfumeak, kremak, arropak.. ø eta gainerakoak Louiseri buruzko argazki eta **artikuluak**. Hasier Etxeberria

[...] bete bat da, beraz, gure ikusmen-sistemaren berezko ezaugarrietako batean oinarritua; eta ikusmenezko pertzepzioari dagokionez oraindik orain egin diren aurreramenduek guztiz egiaztatzen dituzte bere garaian zientifiko baino intuiziozkoago ziren Filmologia eskolaren hipotesiak (1947-1950), geroztik, besteren artean, Christian Metz-en lehenengo **artikuluetan** (1964-1965) jasoak eta sistematizatuak. Josu Zabaleta

Beraz, honezkero badakik **artikuluak** izen bakarrik ere ez zekarrela. Aingeru Epaltza

Artikuluak idatzi behar genituen edonon eta edozertaz; genero berriak landu; urtero liburu bat atera helduentzako, eta hiru haurrentzako. Pako Aristi

4 (izenondoekin)

Irakasle ohi batek argitaratutako **artikulu** txiki bat. Fernando Morillo

Artikulu aberatsak ditu aldi oro, mundu guziko linguista jakintsun batzuek idatziak euskarari doazkion gaietaz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gero, **Artikulu** argitaragabeak izeneko artxiboan gorde du. Anjel Lertxundi

Oso **artikulu** interesgarria dakar erlijiozaletasunak laikoen artean izan duen hazkundeaz. Antton Olano

Lady Diren gizongai berriaz **artikulu** sakon bat bada... Itxaro Borda

Sabatoren ezertxo ere irakurri gabe geunden laurok ere, eta lotsarik gabeko **artikulu** satiriko bat moldatu genuen haren adierazpenen kontura, argentinarren azentuaren parodia ere eginez; hona, etsenplurako, bukaerako esaldia: "En rejumen, Ernehto Sabato eh mah tonto que un sapato". Xabier Mendiguren Elizegi

Euskarari ere laguntza eman zion hala nola bere astekarian agertuz Okzitandarraz Tolosan agertu **artikulu** luze bat. Xipri Arbelbide

Bederatzi **artikulu** labur bildu dituzte, euskal kulturarekin lotutako gaien inguruko hausnarketak guztiak. Berria - Kultura

Kontinuismoa zen: batasun espainiarrari buruzko **artikulu** ospetsuak, batasunaren bermatzaile izan behar zuen armadari buruzkoak. Berria - Euskal Herria

Horren ondorioz, Euskera buletinean argitaratutako **artikulu** akademikoak, argitalpen monografikoak eta bildumetakoak zein bildumetatik kanpo geratutako lanak eta beste erakunde batzuekin elkarlanean egindako lanak datu basean katalogatu dituzte. Berria - Euskal Herria

Globalizazio-garaiko ekonomia eta kulturaren arteko harremanaz ziharduen **artikulu** euforiko bezain eufemistiko batean irakurria: "Informazio-gizarteko aurrerapen teknologikoek abantaila handiak ekarriko diruzte". Joxerra Garzia

Grandinen eta, oro har, autisten autobiografiei buruzko susmoak ez dira itzali, baina Templeren artikuluak irakurri nituenean (eta haren **artikulu** autobiografiko mordoxka), berehala aurkitu nuen halako xehetasun eta sendotasun bat -zuzenekotasuna-, iritzia aldarazi zidana. Xabier Olarra

Gainera, liburu eta **artikulu** on asko dago fonetika eta fonologiaren alorrean. Lourdes Oñederra

-Kazetaritza eskolako azken urtea hasi zuenean eman nion opari, bere lehen **artikulu** profesionala harekin idatz zezan. Jon Muñoz

Biharamunean, irailaren 23an, eta lau egun aurretik efemeridea eta ospaketak iragarriz, Txiki eta Otaegiren XXV. urtemuga kari, **artikulu** hunkigarri bat zekarren gure prentsak, foto apal batez hornitua: Txillardegi

Noizbait behar eta, zigor ziegara heldu naiz, isolamenduko moduloa zer den jakinen dut, psikopaten galerian biziko naiz, hamargarren **artikulu** ospetsua ezarrita daudenen gogortegianøø.! Koldo Izagirre

Ihesaldi hark **artikulu** ikaragarri interesgarri bat egiteko balio izan zidan. Koro Navarro

Egun haietan, parlamentuan eta egunkarietan politikariak elkarri ileetatik tiraka zebiltzan lehenik 4garren eta gero 7garren bilakatu zen **artikulu** famatu bategatik, eta eliza eta erlijioarekin zerikusia zuenez gero, On Camillok ez zuen zalantzarik izan saltsa hartan leporaino sartzeko. Koldo Biguri

Euskal Herrian badaude espainolista konfesionalak, are euren kredo politikoan **artikulu** behinena espainolismoa dutenak ere, azken urteotako PP-PSOE fronteak aski argi erakutsi duenez. Joxe Azurmendi

Argitaratu zenituen **artikulu** bakanetan hori antzeman uste izan nizun, bederen. Xabier Montoia

Guztiz bestelako ikuspuntu batetik ikusten zituen gauzak, beraz, eta hiriaren kontrako **artikulu** izugarri bat idaztea zerabilen buruan, han ostalariek atea ixten baitzieten bidaztiei, eta bidaztiek "alderdi moralean zein fisikoan" larrutu ditzaten besterik ez zuten eskatzen. Karlos Zabala

Hari beretik, liburutegi infinitu batek hartuko lukeen espazioaren nolakotasunaz eta bertan kabituko liratekeen liburuen kopuruaz galdetzen zuen behin Vila-Matasek **artikulu** gogoangarri batean. Anjel Lertxundi

Hitz egitea debekatuta daukate, eta Ju Youngrako **artikulu** elektronikoak egiten dituen fabrikan, baita irribarre egitea ere. Iñaki Heras

- Horretazz ari garela -ilargi-aurpegiduna horman bermatu zen-, Holyoke, nire lagun maitea, gaur goizzeko egunkarietan ikusi al duzzu gomaren merkataritzari buruzz idatzi dudan **artikulu** polita?... Lopez de Arana

Guztiarekin, eta Ostolazaren kalterako batez ere, egun hartan bertan hilketaren gainean **artikulu** luze eta zabala zekarren hedadura handiko egunkari batek. Migel Angel Mintegi

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Idazle ezaguna zen Markiegi, hark idatzi zuen (sinatu ez bazuen ere) Lizardiren Itz-lauz **artikulu** bildumaren hitzaurrea. Jokin Urain

Duela aspaldi, 1870 hamarraldi hondarrean, Larresoron, elkarrekin irakasle izan ziren, Aiherra Espertateiko Simon Durruty (1852-1915) eta Hazparne Eztiteiko Janpiarre Diharce (1848-1931) bi liburu zale handi eta euskal liburugile haiei, eskaintzen diet, maiteko zuketen nafar teologoaren **artikulu** sorta hau. Piarres Xarriton

Bertso jarriek eman zioten garai batean ospe pixka bat, Euskaltzaindiaren bertso-paper sariketa 1962an irabazita; geroztik beste hainbat sorta ere asmatu zituen, baina hitz lauzko lanak nabarmendu nahiko nituzke nik hemen: **artikulu** sail bat idazten hasi zen Jexux Lete lanetik erretiroa hartutakoan, Orrela ziran gauzak izeneko liburuan bildu

zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Egunkari ingelesaren iritzi **artikulu** faltak eta agentzien sinadurek burukomin bat baino gehiago aurrezten dizute. Lutxo Egia

Beroan bero, emankizun, **artikulu** andana bat izan zen. Michel Oronoz

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zientzia-**artikuluetan**, iluntasunetik argirantz daraman errege-bide batean barrena doa adimena. Juan Garzia

7 ***artikulu zientifiko***

210 **artikulu zientifikotan** oinarrituta, errauste plantak lurra eta ura kutsatzen dutela berretsi zuten. Berria - Euskal Herria

Hori da joera nagusia munduan zehar: kalkulatzen da AEBetako industria patenteetan aipatzen diren **artikulu zientifikoen** %73 zientzia publikotik hartuak direla. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

8 ***fedeko artikulu***

Hau ez da agindu bat, askotan uste izaten den bezala, **fedeko artikulua** da, Jainkoak emandako irakaspena, gizakiak aurki ahal ditzan bere sofrikizunetan, bere ekintzetan eta bere bizitzan atseginak eta poztasunak; beraz, agintzaria gehiago da, agindua baino. Joan Mari Lekuona

-Bueno -eta Martin sartu eta bere ibiliez eta egin behar zituen astakeriez hitz egiten zuen, eta Tellagorriren iritziak azaltzen zituen, berari **fedeko artikuluak** iruditzen zitzaizkionak. Koro Navarro

9 ***zientzia artikulu***

Unibertsitate eta ikerketa zentroetan egiten den ikerkuntzak ematen dituen emaitzak neurtu nahi direnean, denbora jakin batean argitaratzen diren **zientzia artikuluen** kopuruari erreparatzen zaio batez ere, esan bezala. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zientzia-artikuluetan, iluntasunetik argirantz daraman errege-bide batean barrena doa adimena. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

agertu artikulu (6); **ainitz artikulu** (5); **aldizkarian argitaratutako artikulu** (11); **argitaratutako artikulu** (27); **argitaratutako artikulu batean** (10); **argitaratutako artikulu baten** (11); **artikulu argitaratu** (7); **artikulu asko** (8); **artikulu bana** (7); **artikulu bat** (125); **artikulu bat argitaratu** (13); **artikulu bat idatzi** (11); **artikulu batean** (66); **artikulu batek** (16); **artikulu baten** (31); **artikulu baten arabera** (6); **artikulu bati** (5); **artikulu batzu** (9); **artikulu batzuen** (6); **artikulu batzuk** (16); **artikulu berean** (5); **artikulu bilduma** (7); **artikulu famatu** (9); **artikulu gehienak** (6); **artikulu guztiak** (14); **artikulu hartan** (7); **artikulu hau** (21); **artikulu honen** (10); **artikulu honetan** (11); **artikulu hori** (28); **artikulu horiek** (15); **artikulu horrek** (16); **artikulu horren** (11); **artikulu horretan** (14); **artikulu hura** (8); **artikulu idatzi** (7); **artikulu luze** (7); **artikulu mamitsu** (8); **artikulu nagusiak** (7); **artikulu sorta** (8); **artikulu ugari** (8); **bi artikulu** (19); **bigarren artikulu** (10); **bigarren artikulu famatu** (5); **buruzko artikulu bat** (13); **egunkariko artikulu** (6); **ehunka artikulu** (7); **hainbat artikulu** (20); **idatzitako artikulu** (10); **iritzi artikulu** (21); **izeneko artikulu** (6); **kaleratutako artikulu** (5); **liburu eta artikulu** (5); **prentsa artikulu** (7); **zenbait artikulu** (8); **zuen artikulu** (20)

artikulua aldatu (5); **artikulua argitaratu** (5); **artikulua ezarri** (6); **artikulua idatzi** (6); **artikulua irakurri** (13); **artikulua urratu** (8); **artikulua urratzen** (6); **azken artikulua** (6); **bigarren artikulua** (11); **buruzko artikulua** (13); **iritzi artikulua** (8); **izeneko artikulua** (6); **lehen artikulua** (8)

artikuluak argitaratu (5); **artikuluak bildu** (5); **artikuluak dio** (10); **artikuluak dioenez** (6); **artikuluak ezartzen** (5); **artikuluak idatzi** (8); **buruzko artikuluak** (14); **idatzitako artikuluak** (9); **iritzi artikuluak** (13); **lehen artikuluak** (11)

artikuluan aipatzen (8); **artikuluan jasotzen** (6); **artikuluan oinarrituta** (7); **izeneko artikuluan** (5)

artikuluaren arabera (28); **artikuluaren egileak** (9)

artikuluari esker (7)

bere artikuluetan (5); **iritzi artikuluetan** (5)

---

artikulugile *iz* artikuluak idazten dituen pertsona.

Ez daukat **artikulugile** horrek baino garun-nahasmen handiagorik, edo gizartean eredugarri diren arloteek baino pertzeptzio irrealagorik. Pako Aristi

Urte gutxian bide oparoa egin du Iban Zalduak ipuingintzan, eta euskal literaturaren inguruko debateetan ere presentzia handia du, hizlari, **artikulugile** nahiz saiakeragile gisa. Berria - Kultura

Hortxe gaude eta hor jarraituko dugun itxura dugu: PPk PSOE kontrolatzen du; **artikulugile** konstituzionalista gehienak PSOEkoak dira, PPren logikapean daude eta PSOEri markajea egiten diote. Berria - Euskal Herria

Aldizkari zientifikoan agertzen zen argazkia gezurretakoa da eta gezurra esan zuen basamortuan lehoiak ikusi zituela ziurtatu zuen **artikulugileak**; hala ere, horrekin batera, Antoine de Saint-Exupéryk ere gezurra esan zuen bere isiltasunarekin. Patxi Zubizarreta

Gontzal Mendibilen artikuluak, beraz, itxi egiten zuen zirkulua, ukaezina baitzen José Hierroren olerkiaren eta **artikulugileak** aipatzen zuen Gandiagaren beste haren arteko parekotasuna: [...]. Imanol Zurutuza

Kontuan izan beza irakurleak goitik behera irakurri ahal dugun Txirrist hori aldizkariko **artikulugilerik** ezagunenetako bat zela. Iñaki Arranz

---

artikulugintza *iz* prentsan eta kidekoetan artikuluak idaztea.

Poesia, antzerkia, kantua eta **artikulugintza** landu zituen, idazle gisa, Monzonek. Berria - Kultura

Jaio zela mendea igaro den honetan, haren poemagintza, **artikulugintza** eta oro har, euskal kulturari egin zion ekarpenaz jardun dute, besteak beste, Pantxoa Ospitalek, Peio Carrerek, Piarres Xarritonek, Daniel Landartek, Koldo Izagirrek eta Xabier Mendiguren Elizegik. Berria - Kultura

Literaturaz gain zutabegintza eta **artikulugintza** jorratu dituzu. Ana Urkiza

Nik zutabegintza eta **artikulugintza** ariketa gisa bizi izan ditut, eta literatura egin ahal izateko, oso ariketa onak dira. Ana Urkiza

Poesia, narratiba, saiakera, haur eta gazte literatura eta itzulpengintza landu ditu batik bat, baina gidoilari lanetan eta **artikulugintzan** ere ezagutu dugu. Koldo Izagirre

---

artikuluño *iz adkor* artikulutxoa.

Duela hilabete bat Herria kazetak Iparraldean bertsu eskoletan egiten den lana aipatzen zuen **artikuluño** batean "Iparraldeko bertsu eskoletan biharko Altxorra". Herria

Jaz, keinka huntan berean, titulu ber-berarekin ager-arazi ginuen **artikuluño** bat, eta gainerat toki huntan berean. Herria

---

artikuluska ik **artikuluxka**.

---

artikulutxo *iz (orobat* **artikulotxo**, *g.er.) iz adkor* artikulu laburra.

Artikulutxo bat egiten ari naiz astekari ganorabako batentzat. Unai Iturriaga

Bahituak: Irakurleak leituko duelarik ene **artikulutxo** hau bederatzigarren astearen hastapenean izanen dira hiru bahituak, erran nahi baita bi frantses kasetariak eta haien siriar gidaria. Herria

Aurretiaz aipaturiko **artikulutxoa** idatzi zuen Dionisosen ordenadorean. Unai Iturriaga

Luis Alberdi **artikulutxoa** irakurtzen. Unai Iturriaga

Nafarroako *Diario de Noticias* egunkariaren orrialde baten fotokopia bat zegoen barruan, Aingeru Epaltzaren **artikulutxo** batekin. Iban Zaldua

Hauxe da jende xehearentzako kazetaritza, zuk egin duzun **artikulutxo** hau! Unai Iturriaga

Oharra: Joan den asteko **artikulutxoan** behar zen irakurri: "Au nom de mon Père, du Fils, et des simples d'esprit". Herria

Ez dut ba idatzi ene **artikulotxoa** goxo, barrutik, eta bat-batean desagerrarazi dit bistatik tramankulu zahar eta handi honek. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
artikulutxo hau (4)

---

artikuluxka *iz* *(orobat **artikuluska**)* *iz adkor* artikulutxoa.

El País Semanal-eko **artikuluxka** bat zen, sedukzioaz hitz egiten zuena: joko bat zela, eta ez dakit zer gehiago; lehenbiziko pausoa, batek erregalu bat egitea zela. Xabier Mendiguren Elizegi

Kontuak kontu, ez nuen deus aurreratu, salbu eta Ibai-Ertzi buruzko **artikuluxka** hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Plazaz plaza hogeitabi urte bete ditudan honetan, jolasean ari naizen uste osoz, hogeitabi **artikuluxka** idaztea pentsatu dut. Andoni Egaña

Gainerakoa bere lehengusuaren astekarira bidalitako **artikuluxkan** irakur dezakezu laburbilduta. Unai Iturriaga

Telefonicaren autobusera joaten ginen gure **artikuluskak** erredakzioan zain zegoenari irakurtzera. Berria - Kirola

---

artilari ik **artillero**.

---

artile **1** *iz* ardiaren ilea, eskuarki moztu ondoren.

Gülbahar, eserita, **artilea** iruten ari zen. Fernando Rey

Hainbat denbora geroago lastaira ireki zuen, **artilea** harrotzeko asmoz. Jokin Urain

Ardikiz elikatzen zarete, **artilez** janzten eta arkumerik ederrenak hiltzen dituzue, baina ez duzue artaldea zaintzen. Elizen arteko biblia

Virgiliok ingeles erako beroki beltza zeraman, belaunburuetaraino luze; Agnèsek, Cachemirreko **artilez** eginiko beroki motza, izterretaraino iristen zitzaiona. Felipe Juaristi

Bigungarriak zaldun baten irudia zeukan **artilez** brodaturik. Jose Morales

Artilea bezala ororarazten du elurra, hautsa bezala zabaltzen antzigarra. Elizen arteko biblia

Patroiak erosi eta orratzez finka-tzen zituen aukeraturiko oihalaren gainean, zeta, **artilea**, muselina nahiz belusa. Joxan Elosegi

Ez duzue **artilea** eta lihoa nahastuz ehunduriko arroparik jantziko. Elizen arteko biblia

Artilearen lakartasuna eta animaliari zerion berotasuna sentitu nituen. Anjel Lertxundi

Purpura-arrainaren kolore gorria **artilearekin** bakarrik biltzen da eta ez da sekula bereziko, **artilea** Neptunoren olatuekin berritu nahi baduzu ere. Xabier Amuriza

Enbolo mugigarriak izango dituzte tornuan fintasunez landuak eta erdian burdinazko beso batzuk, eta beso hauek hagatxoekin egongo dira bisagra bidez elkartuta, eta **artilea** duten larruekin bilduta. Santiago Iruretagoiena

2 (izenondoekin)

Flandriako eta Italiako iparraldeko ehunak, fabrikatu ahal izateko, Asiatik inportaturiko zeta behar zuten, eta **artile** ingelesa askotan. Orain Irkutskera zihoazen, **artile** zakarrez egindako abitu, txano eta arropekin jantzirik. Koro Navarro

Belusezko galtza-nasai belaunetarainokoz jantzirik etortzen zen eskolara, **artile** zakarrezko galtzerdiz, eta, inoizka, Renato Fucini1 gogorarazten zidan brusa batez. Juan Garzia

Amak **artile** finezko jertse morea zeramala. Aitor Arana

Zurezko makila ferratu bat, espartinak, eta Iruñeko bi mando-manta, **artile** bikainekoak, langintzaz trakets eta gustuz zoragarri. Koldo Izagirre

Ohearen aurrealdean, **artile** kizkurreko izpi luzeez egindako alfonbra harro horietako bat zabaltzen zen, pazientziazko lan handia. Karlos Zabala

Artile nabarreko arkume sailak zebiltzan bazkan batetik bestera, eta txerri eta txerrikume zuri-beltzak ageri ziren talde jorietan bildurik. Karlos Zabala

Han egongo zen hura, **artile** purpurazkoak harilkatzen, zutabe baten kontra jarrita, zerbitzariak atzean zituela. Juan Kruz Igerabide

Neskak aurpegia hautseztatzeko borla bat jaurtiki zion, Jimmyren gorbata eta **artile** urdinezko jantziaren papar-hegalak hautsez betez. Lopez de Arana

Dagoeneko urte asko dela nire ama hil zen ohe berean etzanda nago; lastaira beraren gainean; lo egiterakoan ama-alabok biltzen gineneko **artile** beltzezko burusi beraren azpian. Juan Garzia

Bere atzetik argi-uhara uzten du urgainean, urak **artile** zuriz bezala estaliz. Elizen arteko biblia

Horrela azaldu zen, **artile** zurizko jertsearen gainean haren buru beltz kizkurra eta haren begi argiak. Josu Zabaleta

Aitak baimena eman dit **artile** zurizko jertse bat egin dezadan. Josu Zabaleta

Atzamarrak eraztunez beteak zituen gizon sendo bat, judua bera, **artile** nahasizko jantziarekiko gizonari mintzatzen ari zitzaion. Lopez de Arana

Inkisizioko aretora eraman nindutenean sakelan neraman labanaren bila hasi nintzen, baina desagertua zen; nire arropen ordez **artile** lakarrezko jantzi bat nuen soinean. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

Amona batek jertsea egiteko gordetzen duen **artile** mataza. Lander Garro

Hemen dator barrura **artile** koloreko lur antza duen neska. Pako Aristi

Lan nekosoa zen amonarentzat gero, bilobatxoa gauean behin lokartzen zenean, zirriak askatu, **artile**-hariak garbitu eta luze-luze zabaltzea, erabat zuzen lagatzeraino. Mirentxu Larrañaga

Ama ere agertu zen; semearen aurrean eseri zen, megaroiko zutabe baten kontra, eskuetan **artile**-malutak jiraka zerabiltzala. Juan Kruz Igerabide

Gaztea zen hura, eta tartariar erara jantzita azaldu zen: ahari **artilezko** kapela beltza buruan, amila bat gerezi-kolorea, atorra bat urdin fina, galtza beltzak eta feldrozko bota luze distiratsuak Felipe Juaristi

4 ***artilezko*** *izlag* artilez egindakoa.

Artilezko barne arropa jantzi zuen galtzazpien eta elastikoaren gainetik, botoiak lotu, gero gainerakoak jantzi zituen. Berehalaxe, Dumbledore sartu zen logelara, **Artilezko** atorra luze bat zeramala soinean eta lotarako txanoa buruan. Koro Navarro

Xira urdin-iluna, hezur koloreko **artilezko** jertsea, bufanda gorria eta panazko galtza berdeak. Eider Rodriguez

Barruan ez zegoen **artilezko** jertse lodi bat beste ezer. Anjel Lertxundi

Artilezko sorbalda-zapi bat hartu eta lurrean zabaldu zuen. Josu Zabaleta

Kapela hegal zabala, **artilezko** maripulisa eta galtzak, larruzko bota luzeak. Felipe Juaristi

Maizterrak eta inguruetako nekazariak, jai handietan bezala jantzita, ardi larruzko kapelu beltzekin gizonak, **artilezko** kapelu koloretsuekin emakumeak. Felipe Juaristi

Gabardina luzea soinean, **artilezko** txanoa eta txapela buruan, eskularruak jantzi eta armak poltsa batean sartu ondoren, adostutako lekura jo nuen lehenbailehen. Rafa Egiguren

Gauak kabina barruan pasa genituen, hotzez dardar, beroki eta **artilezko** burusien azpian. Joxe Austin Arrieta

Lauki gorri-beltzezko **artilezko** tapaki bat hartu zuen bazter batetik. Anjel Lertxundi

Han baitzebilen negu hartan modan zeuden **artilezko** soineko zurietako bat jantzita. Joseba Urteaga

Otsaileko gau hormatuan, **artilezko** manta batek estaltzen zion, burutik beheiti, gorputza. Aingeru Epaltza

Beltzez jantzita ibili zen beti, soinean beroki lodia zeramala; uda ala negu izan, eskuak **artilezko** eskularruz estalita. Felipe Juaristi

Gorrotoa omen zien, berak esana, bota iltzedunei, **artilezko** galtzerdiei eta eguzkiagatik bere sudurtxo finean agertzen zitzaizkion orin ñimiñoei. Fernando Rey

Hain bortizki jiratu zen besaulkian, ezen zarrastatu egin baitzen bigungarria biltzen zuen ehun **artilezkoa**. Jose Morales

Oinak ikusi ez zitezen, **artilezko** galtzerdiak erabiltzen zituen, zaurien gainean larru-zati bat ipiniz artilearen laztasuna leuntzeko. Askoren artean

Xira urdin-iluna, hezur koloreko **artilezko** jertsea, bufanda gorria eta panazko galtza berdeak. Eider Rodriguez

Kartak **artilezko** mahai-gainekoan erortzen dira, biraka. Monika Etxebarria

Aurpegia hazpegi noblekoa zuen, eta lepoa, berriz, sentsuala, eta orobat eskularru motx **artilezkoz** babestutako eskuak, sorbaldak eta soineko berde batean bildutako bular-gainalde zuriak. Xabier Olarra

5 ***artilezko arte*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Artilezko artea kaleko artearen aldagaietako bat da, zenbait izenekin ezaguna egin dena, besteak beste, yarn bombing (artilezko bonbardaketa), crochet guerrilla, kakorratz gerrilla, urban knitting (hirian trikotatu) edo graffiti ekologikoa. ETC-entziklopedia

6 ***artilezko oinetako*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Mesanotxean, kartoizko maletatxo bat zegoen zabalik, umea janzteko prest: arropatxoa, mantak, **artilezko oinetakoak**... ETC-literatura, saiakera

7 ***artilezko xal***

Artilezko xal batean bilduta zegoen, hotzetik babesteko. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artile beltzezko** (5); **artile hutsa** (5); **artile nahasizko** (3); **artile urdinezko** (3); **artile zurizko** (4); **duen artile** (3); **zuen artile** (3)
> **artilea bezala** (3); **artilea eta lihoa** (4); **artilea iruten** (4)
> **artilezko bufanda** (4); **artilezko galtzerdi** (3); **artilezko jertse** (9); **artilezko kapela** (3); **artilezko manta** (3); **artilezko txano** (4); **artilezko txanoa** (3); **bere artilezko** (3)

---

artiledun *izond* artilea duena.

Izan ere, gaitz asegaitzaren kutsapenak ez zion batetik bestera saltatzeari uzten, azienda **artiledun** eta idi saldoetan bezala. Xabier Amuriza

---

artilegintza *iz* artilearen ekoizpena.

Eta naturak gizonezkoak andrezkoak baino lehenago pilatu zituen **artilegintzan** (gizon enda, oro har, askoz artosoago eta trebeago baita), nekazari lantsuek lotsaritzat hartu eta lan hura emakumei pozik utzi arte, ehuleek ere neke gogor bera jasan zezaten eta langintza zakarrean gorputza eta eskuak zail zitzaten. Xabier Amuriza

Gasna egite xahar modura, gasna jastatze eta saltze, **artilegintza** erakusketa, mami xapelketa... Herria

---

artileria ik **artilleria**.

---

artillari *iz* artilleria maneiatzen duen pertsona. ik **artillero**.

Pikariak, arkabuzariak, baleztariak, **artillariak**... hamar milaka ziren, lurra betean. Aingeru Epaltza

---

artillatu, artilla(tu), artillatzen *(corpusean **artilatu** soilik)* du *ad* eraikinak edo itsasontziak artilleriaz hornitu.

BIAk (Bizkaiko Itsas Armada Errepublikarrak) **artilatua** izateko hautatu zuen eta Eusko Jaurlaritzak bereganatu zuen (1936-X-30). Edorta Jimenez

---

artilleria *(orobat **artileria** g.er.)* **1** *iz* kanoi, obus, mortero eta kideko armen multzoa.

AEBek **artileria** erabili du Bagdaden; Falujan, Latif jeneral irakiarra jarri dute indarren buru. Berria - Mundua

Militarrak estatu-kolpearen alde agertu ziren hasieratik nahiz eta zalduneria eta **artilleria** lehen momentuetan ados ez egon. Mikel Hernandez Abaitua

Gauzak aski nekez zihoazen ordu arte ere, bidea ez izanez orain bezain zabala; geroago zuten zabaldu Napoleonen **artilleria** pasarazteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Kalea luzea zen, eta bi aldeetan zeuden etxeek -horietako batzuk sutan eta bestetzuk erdi suntsiturik- argiro adierazten zuten oso gogorra izana zela infanteriako soldadu haiek bertan agertu aurretik, **artilleriak** eragindako zigor-erasoaldia. Josetxo Azkona

Artileriak harresiaren aurkako tiraldiari ekin dio. Jon Alonso

39 egun Brauweiler-en preso girela, goizeko 5etan **artileriak** iratzartzen nu. Michel Oronoz

Liddell Hart-en Europako Gerraren Historiako 242. orrialdean irakur daitekeenez, britainiar armadaren hamahiru dibisiok (**artileriako** mila eta laurehun pieza lagun). Juan Garzia

Leiho batzuk zabaldu ziren eta jendea atera egin zen, **artilleriako** furgoi bat pasatzen zela pentsatuz dudarik gabe. Koro Navarro

Artileriako tiratzaile bat bezala armatua, bat baino gehiago iziaraziko du oraino. Herria

1800ean, Bonapartek **artileriako** jeneral izendatu zuen eta Rhin-eko gudarostera bidali. Jon Muñoz

Ez ziren ke hodeiak, **artilleriaren** desarrek zeruan sortzen zituzten kiribil zurixkak baizik. Karlos Zabala

2 (izenondoekin)

Artilleria astuneko bateria baten ondotik igaro gara. Mirentxu Larrañaga

Ez da **artilleria** ahalguztidunaren zaratarik gaur gauean, baina fusilen eta metrailadoreen tiro-hotsak kriskitin-kraskitin ari zaizkigu buruen gainetik, eta sugarrek han-hemenka argitzen dute ilunpea aldizka. Mirentxu Larrañaga

Arkitektoen azken berritasunez hornituak zeuden eta **artilleria** etsai baten ahaleginak hutsean uzteko gauza ematen zuten. Aingeru Epaltza

Etengabeko bonbardaketa, **artilleria** eta infanteria blindatuak. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan, orobat **artilleri** g.er.)

Ancre ibaian britainiarrek eraiki berri zuten **artilleria**-tokiaren kokaleku zehatzaren izena, hain zuzen. Juan Garzia

Zertarako ere ziren kanoiak-eta, ordura arte lozulo izana nuen zokondoa, **artilleria** pieza haietako baten itzalpean atondua nuena, bere benetako zereginerako utzi behar izan nuen, ontzian beste askok bezala. Edorta Jimenez

Artilleria-hotsa duk, Frantzia osotik barna zatorrek, benetako armen hotsa duk. Mirentxu Larrañaga

Luze mintzatu ziren, lubaki-kideak tiroak eta **artilleria** hotsak isiltzean mintzatu ohi diren moduan. Imanol Zurutuza

1759an militar ikasketak hasi zituen La Fère-ko **artileria** eskolan. Jon Muñoz

Gertaera horrek halako haserrea eragin zion Erregeri, non Lehen Ministroari heriotza ezarri baitzion, parlamentua **artilleri** bateria batez desegin, eta hortxe izan zuen bukaera Ghargarooko herriaren, herriaren bidezko eta herriarentzako Gobernuak. Xabier Olarra

4 irud/hed

Badaezpada ere, irteerakoan topaldi gaiztorik izan ez genezan, aldean eraman diat **artilleria**. Aingeru Epaltza

Errealitate mediatikoa inoiz baino birtualago azaldu zen; Mayor Orejaren **artilleria** astun osoa -bere armada garaiezina- umiliatuta geratu zen, ez baitzituzten euren helburuak lortu, ezta hurrik eman ere. Txema Ramirez de la Piscina

5 *artilleria arin* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Iragan asteburuan, adibidez, Samarran indarrak pilatzen ari ziren bitartean, EIk hiriari eraso zion bonba auto suizidekin, **artilleria arinarekin** eta frankotiratzaileekin, iturri ofizialen arabera. ETC-prentsa

Belgradeko kaleko borrokak, 1944ko urrian, haren ikuspuntutik deskribaturik daude, Palmoticeva kaletik ikusirik: handik iragaten da **artilleria arina** eta izkinan zaldi lehertu bat datza. ETC-literatura, saiakera

Hurrengo gauean, Kawaguchik Edsonen 830 raiderrei 3000 soldadu eta era asktotako **artilleria arinarekin** eraso zien. Japoniar erasoa ilundu orduko hasi zen. ETC-entziklopedia

6 *artilleria astun*

Artilleria astuneko bateria baten ondotik igaro gara, eta artillerialariak mahai baten inguruan eserita ikusi ditugu, karta-jokoan. Mirentxu Larrañaga

Artilleria astuna atera du berriz ere PPk (gero eta disimulu gutxiagorekin egiten du) bere aspaldiko etsaiak suntsitzeko asmoarekin: kultura eta adierazpen askatasuna. Berria - Kultura

Errealitate mediatikoa inoiz baino birtualago azaldu zen; Mayor Orejaren **artilleria astun** osoa -bere armada garaiezina- umiliatuta geratu zen, ez baitzituzten euren helburuak lortu, ezta hurrik eman ere. Txema Ramirez de la Piscina

Bere esanetan, hego osetiarrek gau osoan eraso zioten Eredvi, **artilleria astuna** erabiliz, eta orduan Armadak "erantzun» egin zuen, bake indar mistoei erasoaren berri eman ostean. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
tankeak eta artilleria (3)
gure artilleriak (3)
artilleriarik gabe (3)

---

artillero *(orobat **artilari** g.er.)* *iz* artilleria maneiatzen duen pertsona. ik **artillari**.

Muinotxora behera jaitsi nintzen; tenientea eta **artilleroak** kopetilun eta isilik ziren kamioitxoaren oinean. Edorta Jimenez

Artilleroen trebetasun faltagatik ez zuen bere helburua lortzen, baina behin eta berriz zuzentzen zuten tiroa, setati, dudarik gabe bazekitelako berek hantxe lortua zela hilabeteetan ahora eraman zuten jateko fresko bakarra. Ramon Saizarbitoria

Aitatxik, lehen aldiz, zerbitzu egin zion erresumari, Asparrotsen **artilleroei** argibideak emanez tiro zuzena egin zezaten gazteluaren kontra. Aingeru Epaltza

Eta auto sakramental iduriko hartan bazirudien, han geunden moduan, ezen gurutzatuen **artillero** konpainia bat osatzen genuela, eta konpainia hark sultanaren jauregia hartu nahi zuela, atakea erretaguardiatik jorik eta handik oldarturik. Joan Mari Irigoien

Ezkutatu egin zen, **artilleroek** kanoia finkatu eta eskotilan behera egin zuten, serbiola gelditu zen bakarrik zubian, prismatikoak begietan. Koldo Izagirre

Zamamutil, enterradore, sukaldari, **artillero**, erizain, mando, zakur, otso eta hiena izan nintzen. Koldo Biguri

Esku oneko **artilari** batek -bere artean ari da-, 81 mm-ko mortero bat baliatuz, 4-5 granada (2 fosforozko, 2-3 su-emaile) baizik ez lituzke behar tiroa doitu eta puxka ttikitan den-denak lehertzeko. Pablo Sastre

Nola bizitu ordea berriro nire hizkuntzaren zentzua, dena nahasten ari denean? Parkeko zuhaitzak familia bateko belaunaldientzat itsasontzi diren aldi berean, **artilleroari** traba egiten dion estalkia baizik ez direnean? Josu Zabaleta

Goardia Nazionaleko artillerian sartu zen, eta beren kanoiak herri-xehearen esku uzteko **artilleroak** bairatu nahian pasatu zituen 1830eko abenduko 21eko eta 22ko gauak. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
artilleroen buru (3)

---

artino *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **artio** eta **arte** agertzen dira)* *post ipar* arte.

Robert-ek aldiz lagundu du bere koñata, gazterik alargundua bi haur ttipi zituela hazteko, haatik haurrak haunditzearekin joan zen Larzabaleko esnetegirat langile eta han lanean arizan erretreta **artino**. Herria

Haien biziaren arabera, XVI. mendetik XX. mende hau **artino**, ikasi diat bertzeari nagusitzeko gosea dela Historiaren motorra. Michel Oronoz

Ez diot ere hari egundaino hitzik erran, orain Errege Jaunak berak agindurik haren abokatu izatera heldu naizen **artino**, nahiz ez haren ez beste nehoren abokatu ez naizen izan, ez izatea gogoratu ere. Piarres Xarriton

Partida huntan sasoi eder batetarik heldu zaigu Larrechea eta partida ederki zoan Istillarte nekatzen hasi **artino**. Herria

Agian pidaia on bat eginen duzue biek! Ikus **artino**! Michel Oronoz

Arizaleak trebatü beharraz gain, pastoral baten bürüala eramaiteko bada beste trahola hanitx, ikusgarriaren egünean gaüzak oro plantan izan **artino**. Herria

Eta, horrela, kausen kausak bilatzetik ez dira geldituko Jainkoaren nahira ihesegiteraino, erran nahi baita ezjakintasunaren aterbera jo **artino**. Piarres Xarriton

Karia horretara, "Informatika eta Komunikazione Teknologi Berrietako" agenziak, Internet gune lehiaketa bat antolatzen du otsailaren 19 **artino**. Herria

Uztailaren 25-an, ortzegunez, aratseko 8-etarik 10-ak **artino**: gazten lekukotasunak eta beilaldia Pierre Eliane frailearekin. Herria

Usaian bezala kamiun bena bat Herriko Etxe ondo hortan emana izanen da ortzirale aratsaldean eta hor egonen da larunbat goizean 8 ak eta erd **artino**. Herria

· Kontseiluak baimena eman dio hartzen duen IBA kopuruaren emendatzeko erdiaz, urtean 60 000 tona **artino**; IBB en kantitatea hamar aldiz emendatzeko baimena ere eskuratu du, urtean 2500 tona **artino**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
orai artino (7); **orain artino** (3)
artinoko auzapeza (3); **erre artinoko opila** (4); **ogia erre artinoko** (4); **orai artinoko bera** (3); **orain artinoko** (26); **ordu artinoko** (3)
orain artinokoa (4)
orai artinokoak (4); **urte artinokoak** (6)

---

artio *post batez ere ipar* arte.

Bainan orain **artio** jokatzen ziren euskaldunak espainol taldeetan hala nola Indurain Banesto taldean eta bertzeak Once edo bertze taldeetan. Herria

Orai **artio**, eta Bush president jarriz geroz, bazterretik so bezala zauden Amerikanoak. Herria

Nonbre berean ziren orai **artio** errepublikano eta demokratak zenaturren bil tokian. Herria

Egun guziz hor izanen da 10 etarik eguerdi **artio** eta aratsaldeko 2 etarik 6 ak **artio**. Herria

9 eta 11 urterainokoentzat: astearte aratsaldean 2 orenetarik 5 ak **artio**. Herria

Herriko Etxearen bisean bis egonen dira 11ak eta 1/2 **artio** gure beha. Herria

Segi aitzina eta helduden urte **artio**. Herria

Biba ziek eta ondoko egunak **artio**. Herria

Partida hau biziki orekatua joan da 40 tanto **artio**, bainan ondarrean usaia haundiagoa duten xaharrek ukan dute azken hitza. Herria

Ipar aldea oro beretua dute jazarleek eta jakin arazi dute hegoaldeari buruz eginen dutela orai beren oldarra, Abidjan hiri nausiaz jabetu **artio**. Herria

Kantaraz gure haurrak, gogoa kantu xaharrez bete **artio**. Herria

Herri hortan, Eihartzea etxean bizi izan zen luzaz, 1938an hil **artio**. Herria

Hirugarren heriotze bat, Mari Setoain 92 urteko emakumea, errientsa edo erakasle izana, zahar arrandan sartu eta Luzaiden egona zen bere ahizpa batekin ez hain aspaldi **artio**, orai ere bi ahizpak elgarrekin zaudelarik Baiona, aldea, gutien ustean utzi gaitu, hola baita mundu huntako bizia. Herria

Ortzeguneko partidan, zaharren ohorea batetik, gazteen gosea bestetik, denek erakutsi dute beren nahikundea, baina aldi huntan adina da mintzatu eta hunek ez du barkatzen... beste bat **artio**! Herria

Beraz ixtant **artio**, eta milesker aintzinetik. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

etarik eguerdi artio (3); **helduden urte artio** (16); **hil artio** (3); **ibiakoitz artio** (3); **ikus artio** (5); **nahi duzun artio** (4); **noiz artio** (10); **orai artio bezala** (3); **orain artio ez** (3); **ordu artio** (3); **orenak artio** (4)

---

artiodaktilo *izond* ugaztun apodunez mintzatuz, behatz kopuru bikoitia duena.

Zerbidoen familiako ugaztun **artiodaktiloa** da oreina Berria - Gaiak

---

artirin *(ETCn **39** agerraldi; orobat **arto irin** ETCn **183** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **arto irin** agertzen da) iz* artoz egindakoa irina.

Piztu duten suak **artirina** egosteko bakarrik balio du. Anton Garikano

Amatxok, aldiz, berdina erosten du beti: ilarrak, arroza, **artirina**, kafea. Xabier Montoia

Alde ederra, mayen **artirin** tristea edo Toledo aldeko mazapan gozoa. Xabier Mendiguren Elizegi

New Yorkeko jatetxe mexikar batean **artirinez** egindako talo batean jainkoaren irudia agertu dela eta harrituta dagoela jabea. Harkaitz Cano

Artirinez egindako ogi handi eta borobil batzuk botako zizkiola sabaitik, eta mana hartaz gain zezina edo urdaiazpikoa ere ekarriko ziola. Bernardo Atxaga

---

artisau **1** *iz* eskulangilea.

Zer gertatuko da **artisau** eta nekazariekin, behin bizitza norbaitzuei eman, eta horiek, lehenengoak bertan behera uzten badituzte, euren zahartzaroa dela eta? Andres Urrutia

Langile eta **artisau** guztiak lanpeturik zeuden han. Agustin Otsoa

Honela, gure gorputz barrenetik ahotsak esprimitzen eta ahotik zuzen kanporatzen ditugunean, mihi higikor hitzen **artisauak** artikulatzen ditu eta ezpainen egokierak halaber forma damaie. Xabier Amuriza

Errito sekretuak, zeremonia burugabeak eta jantzi bitxiak dituen ordena bat, zeinean sartu diren, Karlos II.aren erregealdian Londresko **artisauen** artean sortu zenetik, joandako mendeetako hildakoak, etengabeko atzera-martxan. Xabier Olarra

Egunez txikiteroz eta gauez nerabe taldez betetzen diren taberna horietako batean, egunero legez, elkartu ziren egun horretan ere eta, besteek kinitoa jolasten zuten bitartean, **artisautzari** ekin zion: kostoa plastikotik atera eta mahai gastatuaren azpitik, erdi ezkutuan, hasi zen txiskeroaz desegiten. Sonia Gonzalez

Rafarekin deskubritu zuen Mentxuk farmakopearen **artisautza**, berrehunetik gora pote zeuzkan oinarrizko osagaiez hornituak, eta zaletasun ia bokazionala zeukan maisutza jardunerako. Josu Landa

Ford Madox Fordek **artisau** artatsu baten arduraz azaltzen du giza harremanen eta sentimenduen oreka ederra nolatan doan geldika-geldika ahultzen, azkenik era ikusgarrian zapartatzeraino. Markos Zapiain

Horrek ez du esan nahi lehendik euskal pentsamendurik ez zegoenik, erromatar hirietan euskaldunen presentzia etxetiar eta herrikoi soil zela baizik, hau da, bernakuloak menderatutako esklaboak, **artisauak** eta liberatuak, merkatari edo soldadu soil bakarrik zirela alegia. Askoren artean

Nik, egin, egin nituen **artisau** baten eta sarrailgile baten laguntzarekin, eta bai erregeak bai herritarrek bihotzez eskertu zuten nire asmakizuna. Patxi Zubizarreta

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artisau eskuak zituen eta izpiritu landua. Juan Garzia

Baita beste hainbat alferrikako lanek ere, Lázló-k egindako arte-lan guztiek eta **artisau**-lan gehientsuenek, esaterako (margolari eta eskulturagile izan zen garai batean, bere espirituaren onerako eta poltsikoaren kalterako). J.M. Olaizola "Txiliku"

Zuloaren tapakia altxatzean, bihotz apurtzear, ikusi zuen den dena han zegoela, bi urte utzi bezala: ekialdeko merkatariei erosi pistolak, roketa eta airekoen kontrako jaurtigailuak, dinamita abarrak, **artisau** bonbak zartarazteko detonagailuak, premiazko hari, bisa eta alanbre puskak oro. Itxaro Borda

3 *artisau garagardo* *(corpusean ez dago; ETCn **89** agerraldi; horietatik **86** azken sei urteetan)*

Artisau garagardoak garagardoak dira, gehigarririk eta kontserbagarririk gabeak eta pasteurizatu gabeak. ETC-entziklopedia

Azken urteetan txosnetan **artisau-garagardoak** gero eta leku gehiago du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edateko, nola ez, **artisau garagardoak**. ETC-prentsa

Duela urte batzuk, jakin-minak eraman ninduen **artisau garagardoaren** mundua ezagutzera, eta pixkanaka hasi nintzen tabernan botilak gehitzen. ETC-prentsa

Nobelez, janari goxoez eta **artisau garagardoaz** gozatu behar dugu. ETC-prentsa

Edateko gustu askotariko garagardoak izango dira: alkoholdunak, alkohol bakoak eta aurten berezitasun izango diren garagardoa limoiarekin **eta** Zerb artisau-garagardoa. ETC-prentsa

Inguruko **artisau garagardoak** eta Euskal Herriko produktuak ezagutarazteko, Beertoki garagardo azoka egingo dute gaur Villabonan (Gipuzkoa). ETC-prentsa

Azken urteotan Euskal Herrian sortu diren beste **artisau garagardoaren** enpresak ez bezala, La Salvek anbizio handiko helburu bat du: enpresa handiekin lehiatzea. ETC-prentsa

Villabonako hainbat baserritar ere saio bera egiten ari dira Gipuzkoako eremu horretan, **artisau garagardoen** prozesuetan bertako lupulua balia dezaten. ETC-prentsa

Arabako produktu izarra ardoa bada ere, badaude bertako sagarrarekin egindako sagardoa, Arabako patatarekin egindako vodka eta **artisau garagardoa** ere. ETC-prentsa

Artisau garagardoaren ekoizpena 1,25 milioi litro da jadanik Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. ETC-prentsa

4 *artisau garagardotegi* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Zaletasunari bide emanez, Laugar **artisau garagardotegia** sortu zuten bost lagunek iazko maiatzean. ETC-prentsa

Artisau garagardotegi da, osagaiak erabat naturalak direlarik. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

artisau azoka (3); **artisau batek** (2); **artisau baten** (2); **artisau bikainak** (2); **artisau guztiak** (2); **artisau lan** (3); **artisau lanak** (2); **artisau produktuei** (2)
artisaua da (2); **artisaua naiz** (2); **idazlea artisaua** (2)
artisauak bezala (2); **artisauak dira** (3); **artisauak eta erramentariak** (2); **artisauak ziren** (3); **munduko artisauak** (3)
artisauaren eskuz (2); **artisauaren eskuz harlauza** (2)
artisauekin batera (2)

artisauen erakusketa (2); **artisauen lana** (2)

---

artisautza *iz* eskulana; eskulangintza.

Eta agureak, buelta eman, eta fotokopiak egiten jarraitu zuen, mantso, kontu handiz, **artisautza** lan delikatu batean arituko balitz legez. Iban Zaldua

Landakokoaren eta **artisautza** azokaren ondoren, horrek edukiko du tradizio handiena. Berria - Kultura

Artisautzak ez du etorkizunik azterketa zientifikoak hobekuntzak ekartzen dituenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ona eta beharrezkoa da hori egitea, eta Eibarrek bezala, gainerako herriek ere antzeko ekarria egin diezaiokete euskarari nork bere alorrean: arrantzan dela, altzarigintzan dela, **artisautzan** dela, kiroletan dela, e.a. Koldo Zuazo

Unean bertan (edo berehala) kontsumitzeko (oilasko erreak, izozki **artisautzazkoak**). Edorta Agirre

Besteek kinitoa jolasten zuten bitartean, **artisautzari** ekin zion: kostoa plastikotik atera eta mahai gastatuaren azpitik, erdi ezkutuan, hasi zen txiskeroaz desegiten. Sonia Gonzalez

Bertsogintza "prekario"-an burutzen den **artisautza**-lana da. Andoni Egaña

Musika eta dantza tradizional emanaldiak, **artisautza**, bertsolaritza, mota askotako tailerrak eta hitzaldiak bilduko dituzte maiatzaren 6an eta 7an Portugaleteko hornidura-azokan. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artisautza azoka (4)

---

artista 1 *iz/izond* arte ederretan aritzen dena.

Azken urteetan AEBetako galeriak Espainiako merkatuari egokituta ikusi ditut, baina aurten indartsu azaldu dira bertako produktuak eskaintzen, Madrilera ezezagunak diren **artistak** eramateko beldurra galdu balute bezala. Berria - Kultura

Are liluragarriagoa da halako arazoa **artista** bati gertatzea; kolorea garrantzi izugarrizkotzat eduki duen eta gertatu zaiona deskribatu eta aldi berean margotzeko gauza den bati, alegia; aise ikusaraz baitiezaguke halakoak bere egoeraren harrigarria, sortzen dion larritasuna eta gaixotasunaren nondik-norakoa. Xabier Olarra

Aro modernoan, **artista** eta teorialari (Alberti, Dürer, Leonardo da Vinci), filosofo (Descartes, Berkeley, Newton), eta, jakina, fisikari askok jarraitu zuten azterketa hori aurreratzen. Josu Zabaleta

Gehienak inguruetako **artisten** lanak ziren, baina baziren ospetsuagoenak ere. Hasier Etxeberria

Harryk bere lehenbiziko **artista** aurkitu zuen, lehenbizikoa eta bakarra, eta hurrengo zortzi urteetan galeriak aski kaudimen izan zuen Smith-en lanei esker. Oskar Arana

Artista da berak egiten duen artelana saldu nahi duena, nahiz eta gero ez duen saltzen... Harkaitz Cano

Baina, zein dohain zuen ba, poeta edota **artistak**, hain hierarkia altua lortzeko, Edertasunaren etxean ez ezik Jakintzarenean ere bizi ahal izateko? Bernardo Atxaga

Margolan baten aurrean **artistak** eskatzen duen duintasunaz begiratu nion bizkarraldetik behera suharrez jauzika zebilkion herensuge hamaika sare, atzapar eta sugez inguratuari. Javi Cillero

2 *iz* ogibidez musikan, dantzan, antzerkian edo zineman aritzen den pertsona.

Mary Shelleyk zioen **artistak** kaosa duela, gutxienez, begien bistan, **artistak** kaos horren anabasan sartu behar dituela atzaparrak bertan lan egiteko. Anjel Lertxundi

Zer izen zuen ba Hollywoodeko **artista** hark, laku hartan, Tahoen, etxe bat zeukanak?. Bernardo Atxaga

Liverpool eta Man Uharteko turistaz eta, batzuetan, music-halleko **artistaz** osatutako biztanleria aldakor bat egoten zen haren etxean. Irene Aldasoro

Baroja ez da bere garaikideez axolagabe izaten den **artista** bortitz bat, oso gizon ikaratia eta idazle erresumindua baizik. Patziku Perurena

Zein ederki adierazten duen Woolfek **artista** lanaren gogorra, bakardade beharra, eztabaiden eta bileren arriskua eta gezurra! Markos Zapiain

3 irud/hed

Halakoxe **artistak** zarete zuek, halakoxe espontaneo eta sinzeroak. Iñaki Iñurrieta

Garai zailak ziren benetan, **artistak** izan behar genuen hainbat alorretan. Karlos Zabala

Goazen, **artista**, berba gutxi eta artez etxera lehertu arte ekitera. Urtzi Urrutikoeetxea

Inork ez beza pentsa Mogueime, historia honetako heroia izate hutsagatik, beste edozein baino trebeagoa eta **artistagoa** denik. Jon Alonso

4 ***artista gonbidatu***

Gainera, orkestrarekin batera, 33 **artista gonbidatuk** hartuko dute parte emanaldietan; sei pianistak, bederatzi zuzendarik eta lau biolin jotzailek, besteak beste. Berria - Kultura

Artista gonbidatuak ez dira beti argazkilariak izan. Berria - Kultura

Jakinarazi dutenez, Bjork izango da ekitaldiko **artista gonbidatu** bakarra. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

artista alemaniarrak (5); **artista asko** (11); **artista askok** (14); **artista askoren** (14); **artista autista** (6); **artista bakoitzak** (10); **artista bakoitzaren** (10); **artista bat** (35); **artista batzu** (6); **artista batzuek** (12); **artista batzuekin** (6); **artista batzuen** (12); **artista batzuk** (9); **artista bera** (8); **artista berri** (5); **artista berrien** (9); **artista bizkaitarrak** (5); **artista da** (35); **artista estatubatuarrak** (7); **artista ezagun** (6); **artista ezagunak** (6); **artista ezagunen** (8); **artista frango** (5); **artista gazte** (22); **artista gehienak** (7); **artista gisa** (15); **artista guztiak** (6); **artista handi** (14); **artista handia** (11); **artista hau** (11); **artista izan** (11); **artista ospetsu** (6); **artista plastiko** (5); **artista talde** (6); **benetako artista** (8); **beste artista batzuen** (6); **bi artista** (16); **egungo artista** (6); **euskal artista** (28); **euskal herriko artista** (8); **gure artista** (7); **hainbat artista** (22); **herriko artista** (10); **hiru artista** (6); **idazle eta artista** (11); **jaun artista** (11); **mendeko artista** (7); **artistak berak** (13); **artistak eginiko** (9); **artistak izan** (6); **azaldu du artistak** (13); **bi artistak** (9); **euskal artistak** (21); **hainbat artistak** (14); **jaun artistak** (35); **zenbait artistak** (10)

artistaren lana (14); **artistaren obra** (9); **euskal artistaren** (14); **hainbat artistaren** (11); **jaun artistaren** (23)

artistari buruz (6); **artistari buruzko** (8); **jaun artistari** (6)

---

artistakeria 1 *iz* arte plastikoetako lan edo jardun gaitzesgarria.

Ekintza bat, eta haren ondoren bizitzarako jaioko ziren, **artistakeriak** eta estetizismoak eta hura guztia zakarretara botata. Iñaki Iñurrieta

Euskaraz -keria eransten ahal zaie txartzat edo halamoduzkotzat jotako tasunei, eta hala ikasi genuen guk artixtekeye esaten, **artistakeria**. Iñaki Segurola

2 irud/hed

Xabik eta Decok ohiko lana egin zuten zelai erdian, Ronaldinhok ohiko **artistakeriak** zelai osoan, eta Eto'ok ohiko arriskua sortu aurrealdean. Berria - Kirola

---

artistiko 1 *izond* arte ederrei dagokiena.

Behin eta berriro, Ortega-ren analisi eta kritika guztietan -historiko, politiko, literario, **artistiko**, sozialak-, azkeneko arrazoia beti arraziala da. Joxe Azurmendi

Bekaizkeria pixka batez, bere karrera **artistikoagatik** zoriondu nuen. Iban Zaldua

Etengabeko borrokan, klakea dantzatzen bezala, jardun behar da exekutiboak zure lan **artistikoan** sar ez daitezen. Berria - Kultura

Bertaratuko naiz, talde **artistikoen** egoera sentitzeko, konpontzeko haien arazo materialak". Pablo Sastre

Oso litekeena iruditzen zait elkar ezagutzea, are gehiago kontuan hartuta biek zituztela kezka **artistikoak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Egintzat jotzen dugu zure hurrengo erakusketa **artistikoaren** arrakasta. Ramon Etxezarreta

Eta desenfokerako zaletasuna gorrotatu zuen, bere burua madarikatu zuen Tendences aldizkariak eta fashion argazkilarien joerak imitatu izanagatik; despiste **artistiko** hura barkaezina zen. Eider Rodriguez

Ez zekien nola zuen Florentek izena; aurkitu bezala utzi zuen, espaloi baten ertzean, bere gustu **artistikoak** zein ziren azaldu eta gero. Karlos Zabala

Altzari **artistiko** finenak eta trepeta zirtzilenak nahas-mahas. Anton Garikano

2 *errealismo artistiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

New Yorkeko Metropolitan Museum of Arten ikus daiteke. **Errealismo artistikoaren** estiloan kokatzen da. Urte horretan Hopperren lan bakarra izan zen. ETC-entziklopedia

3 *gimnasia artistiko* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Gizonezkoen kategorian eraztunak, barra finkoa, zaldi arkuduna, barra paraleloak, zaldiko-jauzia eta zoruko ariketa (**gimnasia artistikoa**) lurreko ariketak diren bitartean. ETC-entziklopedia

Gimnasia artistiko maskulinoa (GAM) kirol olimpiko bat da, karakterizatua dago mugimendu oso koordinatuak eta prezisio handikoak direlako. ETC-entziklopedia

2015ko **Gimnasia Artistikoko** Munduko Txapelketan hartu zuen parte Glasgowen eta 2016ko Udako Olinpiar Jokoak 2016ko Udako Olinpiar Jokoetan Rio de Janeiron. ETC-entziklopedia

Munduko **Gimnasia Artistikoko** Txapelketako finala jokatuko da gaur Aarhusen (Danimarka). ETC-prentsa

Gimnasia artistikoa vs. gimnasia erritmikoa. ETC-prentsa

Azaldu du horrelako kirol batean - **gimnasia artistikoko** entrenatzailea zen- "ezinbestekoa" dela kontaktu fisikoa. ETC-prentsa

Besteak beste, **gimnasia artistikoa** , dantza, erritmoa, lankidetza eta gorputzadierazpena lantzeko aproposak diren jarduerak. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 *gimnastika artistiko* *(corpusean ez dago; ETCn **50** agerraldi)*

Gimnastika artistikoa aparatu jakin batzuetan derrigorrezko eta hautazko probak egitean datzan kirola da. ETC-entziklopedia

Gimnastika artistikoa diziplina olinpiko bat da, konposizio koreografiko bat egitean datza, aldi berean eta abiadura handian gorputz-mugimenduak konbinatuz. ETC-entziklopedia

Guztira, 45 gimnastek hartuko dute parte kirol topaketa honetan, eta modalitate guztietan lehiatuko dute: **gimnastika artistiko** eta kirol gimnastika, gimnastika erritmikoa, kirol aerobika eta tranpolina. ETC-prentsa

Lehen kirol pila egiten nuen: karatea, igeriketa, **gimnastika artistikoa** , taekwondoa, sokatira eta Madrilera iritsi nintzenean dantza afrikarra, antzerkia eta clown teknikak ikasi nituen zirkuaz gainera. ETC-prentsa

Abenduaren 13an eta 14an Madrilen egingo den Munduko **Gimnastika Artistikoaren** Kopan egingo diote omenaldia "kirol horretan izandako emaitza paregabeengatik". ETC-prentsa

Kohei Uchimura japoniarrak Munduko **gimnastika artistikoko** txapelketa irabazi du bosgarren aldiz, Nanningen (Txina). ETC-prentsa

Une hartan ez nekien nor zen Katelyn Ohashi, baina haren **gimnastika artistikoak** txundituta utzi ninduen. ETC-prentsa

5 *gurpil gaineko irristaketa artistiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Gurpil gaineko irristaketa artistikoa gurpildun patinekin eta musika bati jarraituta egiten den kirola da. ETC-entziklopedia

6 *izen artistiko*

Putoa beltza zen, Vladimir deitzen zen, ez dakit **izen artistikoa** izango ote zen baina. Jon Alonso

"Bang-Matu **izen artistikoa** izateaz gain, benetakoa ere bada», dio. Berria - Kultura

Baina gaur egun ez, eta ezta pilularen aurretik ere, erietxerik onenetan abortatzea baitzegoen, aski zen medikuek "arraspatzea" **izen artistikoa** erabiltzea, ebakuntza hori aipatu nahi zutelarik. Karlos Zabala

Zuk akordeoia joko zenuke, eta nik dantza egingo nuke." "Eta zein izango litzateke gure **izen artistikoa** ?" Teresak lepo atzetik pasa zizkidan besoak. Bernardo Atxaga

Jose Antonio Nielfaren, La Otxoa **izen artistikoaz** ezagun denaren oroitzapenak dira horiek. Berria - Euskal Herria

7 *izotz gaineko irristaketa artistiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Izotz-patinaje, izotz-patinaketa edo **izotz gaineko irristaketa artistikoa** izotz gainean praktikatzen diren irristaketa mota batzuk dira. ETC-entziklopedia

8 *izotz gaineko patinaje artistiko* *(corpusean ez dago; ETCn **34** agerraldi)*

Izotz gaineko patinaje artistikoa izotz-pista batean irristailu gainean ibiliz pieza musikal bat interpretatzean datzan neguko kirola da. ETC-entziklopedia

Izotz gaineko patinaje artistikoa kirol olinpiko izan zen 1908an eta 1920an. ETC-entziklopedia

Uztailaren 2a - Jon García Aristegi, gipuzkoar patinatzaile ohia, bost aldiz Espainiako txapeldun **izotz gaineko patinaje artistikoan** . ETC-entziklopedia

9 *izotz gaineko patinatzaile artistiko* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Tonya Harding, estatubatuar **izotz gaineko patinatzaile artistikoa** eta boxeolaria. ETC-entziklopedia

Horrez gain, **Izotz Gaineko Patinatzaile Artistikoaren** Sari Nagusiaren Finala bitan irabazi zuen. ETC-entziklopedia

10 *izotz irristaketa artistiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Izotz irristaketa artistikoko artazi bereziak 1908ko Olinpiar Jokoen programan bakarrik izan ziren. ETC-entziklopedia

11 *marrazketa artistiko* *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)*

Historia sakratuan eta **marrazketa artistikoan** , esaterako, emaitza ezin hobeak lortu zituen ikastetxean emandako urteetan, behin ere hutsik egin gabe. ETC-literatura, saiakera

Aitak ongi esan zidan **marrazketa artistikoa** egiteko, baina niri marrazki txoroak gehiago gustatu, eta marrazki txoroak egiten nituen gehienetan. ETC-literatura, saiakera

Altzari eta logelak marrazten ezagutu izan nuen beti, ez nekien **marrazketa artistikoa** ere lantzen zuenik. ETC-literatura, saiakera

Astelehen hartan, astelehen goizetan ohi bezala, marrazketa-eskola izan genuen -" **marrazketa artistikoa** " deitzen zion don Erasmok hanpuruski: oroitzen zarea?-, ikasle gehienok atsegin genuen jardunean. ETC-literatura, saiakera

Marrazketa-taula zurezko taula edo kontratxapatua (metalezkoa edo plastikozkoa ere) da, dimentsio ezberdinak izan ditzakeena, beti angeluzuzena, non marrazketa tekniko edo **marrazketa artistikoa** egiteko paper-orri bat finkatzen den. ETC-entziklopedia

Umetatik du nolabaiteko lotura irudiarekin: " **Marrazketa artistikoa** atsegin nuen". ETC-prentsa

Era guztietako tatuajeak egiten ditut, baina nahiz eta nahiko zailagoak izan, tatuatzerakoan gehien dibertitzen eta betetzen nauena da **marrazketa artistikoa** eskatzen duten tatuajeak egitea. ETC-prentsa

Orain arte Arte Batxilergoko ikasleek **Marrazketa artistikoa** II, Adierazpen Grafiko Plastikoa eta Bolumena I ikasgaietara aurkez zitezkeen probaren bi faseetan. ETC-prentsa

12 *multzo historiko-artistiko* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Sierra Morena mendilerroaren mendebaldean dago, **multzo historiko artistiko** bat da, eta merezi du han pare bat egunez ibiltzea batetik bestera. ETC-prentsa

Handik hamar urtera, **multzo historiko-artistiko** izendatu zuten Morella, eta masoveroek -hala baiteritze morellatarrei-- aldra turistikoen on-gaitzak pairatu behar izan zituzten. ETC-prentsa

Monumentu **multzo historiko-artistiko** izendatua da Elorrioko hirigunea. ETC-prentsa

1964an Monumentu **Multzo Historiko-Artistiko** izendapena era ofizialean jaso zuen Bizkaiko lehenengo udalerria izan zen. ETC-entziklopedia

Segurak hiribildu izaerari ondo eutsi dio eta Gipuzkoako **multzo historiko-artistiko** ederrenetakoa da, bai eraikuntzen motengatik bai horiek bilbatzen diren moduarengatik. ETC-entziklopedia

13 *patinaje artistiko*

- **Patinaje artistikoa** : Ezusterik ezean, Errusiako bi patinatzailek irabaziko dituzte urrezko dominak: Irina Slutskaiak emakumezkoetan eta Eugeni Plushenkok gizonezkoetan. Berria - Kirola

Izan zen ere beste berrikuntzarik: estreinako aldiz, Olinpiar Jokoak telebistaz jarraitu ahal izan ziren, eta, **patinaje artistikoko** probak pabiloi batean jokatu ziren, eta ez aire zabalean. Berria - Harian

14 *zuzendari artistiko*

Irish Modern Dance Theatreko **zuzendari artistikoak**, John Scottek, lan bat koreografiatuko digu. Berria - Kultura

Garcia de la Torrek, jardunaldietako **zuzendari artistikoak**, elektroakustikak beste arte adierazpideetara egin duen jauzia nabarmendu du elektroakustikaren munduan egin den aldaketen artean. Berria - Kultura

Alejandro Zabala izan da hasieratik Musikeneko **zuzendari artistikoa**, eta oso hurbiletik jarraitu du ikastegiak izan duen bilakaera. Berria - Harian

Filmeko **zuzendari artistikoari** legokioke burubidea. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzokiko zuzendari artistiko (3); **artistiko bat** (12); **artistiko baten** (10); **artistiko eta intelektualak** (3); **artistiko gisa** (4); **artistiko handia** (3); **artistiko handiko** (3); **artistiko horren** (3); **asmo artistiko** (4); **ekintza artistiko** (5); **ibilbide artistiko** (3); **instalazio artistiko** (3); **irudi artistiko** (5); **jarduera artistiko** (3); **joera artistiko** (5); **korronte artistiko** (5); **lan artistiko** (3); **mugimendu artistiko** (6); **proiektu artistiko** (3)

artistikoa da (5); **artistikoa egin** (4); **artistikoa izan** (4); **artistikoa izango** (5); **eski artistikoa** (10); **irudi artistikoa** (3); **izen artistikoa** (6); **jaialdiko zuzendari artistikoa** (3); **jarduera artistikoa** (3); **lan artistikoa** (5); **ondare artistikoa** (7); **patinaje artistikoa** (5); **zuzendaritza artistikoa** (7)

artistikoak izan (4); **irudi artistikoak** (8); **zuzendari artistikoak** (14)

ibilbide artistikoan (5)

ibilbide artistikoaren (4); **irudi artistikoaren** (6); **sorkuntza artistikoaren** (5); **zuzendari artistikoaren** (4)

irudi artistikoari (4)

artistikoen arteko (3); **lan artistikoen** (3)

eski artistikoko taldeak (3)

---

artistikoki *adlag* era astistikoan.

Larunbat goizean, bi demo-kidek, bat Picasso-z mozorroturik, Baionako geltokiko gela nagusiko seinaletika tinduz **artistikoki** euskaratu dute. Herria

Kontua ez baita erantzutea, sortzea baizik; ihardukian indarra xahutu beharrean, geure ahala bildu eta geure burua **artistikoki** eraikitzea, kanpokoari horrenbeste begiratu gabe. Markos Zapiain

Bestalde, **artistikoki**, Euskal Herria baizik kontuan hartzen bagenu ez genuke aski programazio guztia osatzeko Berria - Harian

Etxe berrian bizitza oso mugitua izan zuten, bai **artistikoki** bai industrialki -hasieran sotoetan jarri baitzuten okindegi berria, eta gero Rafael Caro Raggio-k bertan jarri zuen inprenta eta argitaletxea-. Josu Zabaleta

---

artistikotasun *iz* artistiko izatearen nolakotasuna.

Normalean ukatu egiten zaie arte plastikoak direnik, funtsean arte direnik ere ukatu egiten zaie, eta **artistikotasunaren** eremu horretan izan dira, egiaz, gatazkarik gogorrenak. Josu Zabaleta

---

artixot *iz* orburua.

Hala nola blonda, promenatzera, **artixotak** eta abar. Berria - Kultura

---

artixta ik **artista**.

---

artizar *(orobat **Artizar**)* **1** *iz* egunsentian edo ilunabarrean eguzkiaren inguruan ikus daitekeen argizagia, eskuarki Venus planeta.

Urano, Saturno, Jupiter, Marte, Lurra, **Artizarra**, Merkurio. Josu Zabaleta

Ondo antzematen da hori Venus planetaren kasuan: eguzkiaren atzetik ibiltzen da, eta eguzkia sartzen denean zeruan ikusten da Venus distira garbiarekin; orduan, arrats-izarra esaten zaio; beste garai batean, ordea, eguzkiaren aurretik ibiltzen da eta egunsentiaren aurretik azaltzen da; orduan, **artizarra** esaten zaio. Santiago Iruretagoiena

Erromatarren jainkosa baten izena da Venus, eta baita Eguzkiaren bigarren planetarena ere, guk **Artizarra** ere deitzen diogun planetaren izena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bilkuratik etxerakoan behin, uda minean, eguna jadanik ekialdetik altxatzen ari zela, **artizarra** ilargi betearen bizkartzain erraldoi ageri zen orduan, Donapaleuko merkatuaren paretik pasatu nintzen. Itxaro Borda

Azkenengoz 1882. urtean pasatu zen **Artizarra** planeta Lurraren eta Eguzkiaren artetik; gertakari hori munduko alde askotatik ikusi ahalko da gaur. Berria - Gaiak

Hoa azkar, **artizarra** atera baino lehen...! Joan Mari Irigoien

Artizarra sartaldetik irtena zen, laranja kolorez, eta geroxeago Jupiterrek ere distira egiten zuen, bere argi urdinkaraz. Josu Zabaleta

Gauero-gauero, eguzkia atera arte, ñirñirka aritzen zen, bete-beteko biluztasun distiratsuan, **artizarra**, karabanen gidaria. Fernando Rey

Artizarrak hodeiaren erdian bezala, ilargi beteak eta eguzki dirdaitsuak bezala, hala egin zuen honek argi Jainkoaren tenpluan. Askoren artean

Izan ere, Lurraren eta **Artizarraren** orbitak ez daude maila berean. Berria - Gaiak

Tresna horien bidez **Artizarreko** atmosfera, sumendien jarduera, eta klima aztertuko dituzte. Berria - Gaiak

Erreferentzi punturik, **artizarrik** gabe geratu gara itsasoan gauean. Joxe Azurmendi

Bata zen Fracastoro-ren tratatuan agertzen dena, eta eriari guaiakoa hartzea kontseilatzen ziona: guaiako-ura ahotik, batetik, eta lurrunezko bainuak, bertzetik; eta bertzea, Paracelsorena, gaixoari ahotik merkurioa hartzea gomendatzen ziona, planeta Merkurio Mars arraren eta **Artizar** emearen eraginpean zegoelako eta merkurioak baizik senda ez zezakeelako. Joan Mari Irigoien

Emakume garaia zen, ilargia beste; emakume luzea zen, dorre bat beste; emakume distiratsua zen, **artizarra** beste. Felipe Juaristi

2 irud/hed

Eta inork inoiz esanen balizu ez nauzula gehiago ikusiko, ez kasurik egin... maitasunaren **artizarra** ez baita sekula itzaltzen, ezta egun lainotsuetan ere. Pello Zabala

Bi liburu hauek -zein bere jeneroan, jakina- izugarriak direla, nolabaiteko mugarri, lubakietan bizi diren idazle gazteentzat ipar eta **artizar** eta ibilbide. Karlos Linazasoro

Aurrerantzean, gure begiak ipurtargi izango ditu, **artizar**, itsas-faro eternitatearen bidezidor terraltsuetan. Karlos Linazasoro

Hala baitio esan ere, gure maisu Hipokratesek, medikuntzaren **artizar** eta argi denak: "Omnis saturatio mala, perdicis autem pessima". Patxi Ezkiaga

Jauna, Mantxako Don Kijote egiazkoa zara zu inondik ere, zalduneria ibiltariaren **artizar** gidaria. Patxi Ezkiaga

Neu naiz Daviden kimua eta jatorria, neu goizeko **artizar** distiratsua. Elizen arteko biblia

3 *artizarreko atmosfera*

Tresna horien bidez **Artizarreko atmosfera**, sumendien jarduera, eta klima aztertuko dituzte. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artizarra eguzkiaren (4); **artizarra planeta** (3); **nafarroako artizarra** (6)

artizarraren iragaitea (6); **artizarraren orbitan** (3)

---

artizki 1 *iz* hitz baten barnean tartekatzen den osagaia.

Hitzak eratortzerakoan erabili ohi diren atzizki, aurrizki eta **artizki** bereziak ere onartzearen aldekoa naiz. Koldo Zuazo

Letraz letra ibili beharrean, aurrizkien, **artizkien** eta atzizkien bidez luzatzen (laburtzen) dira hitzak, baita deklinabide marken bidez ere: [...]. Iñaki Arranz

Alde guztietako mutikoak zeuden, Boemiako jauregietatik etorritakoak, denak ilehoriak, goranzko sudur eta esku zuri eta makalekoak, Moraviako etxaldeetakoak, Tiroleko gazteluetakoak, Estiriako oinetxeetakoak, Grabenaren ondoko ate itxiekiko jauretxeetakoak, Hungariako landetxeetakoak: guztiek luze-luzeak zituzten deiturak, kontsonantez beteak eta **artizki** zenbaitekikoak, guztiek zuten titulu eta lerruna, baina Akademian, nolabait esateko, arropategian utzi beharra zeukaten beren identitatea. Xabier Olarra

2 *artizki notazio* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Matematikan, **artizki notazioa** egiunezko notazioa da aritmetika eta logika formuletan, non eragileak eragigaien artean idazten diren (adibidez, 2 2, artizki estiloa erabiliz). ETC-entziklopedia

---

artizkune *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* ardiak jezteko gunea.

Eta ez badidazu sinetsi nahi, begira artikune, edo **artizkune** hitzak, Orotariko Euskal Hiztegian. ETC-literatura, saiakera

Niretzako berria den hitza ikasi dut: '**artizkunea**", ardiak jezteko itxitura. ETC-prentsa

---

arto *(orobat **arta** hitz elkartuetan lehen osagai gisa)* 1 *iz* zurtoin lodi eta sendoko landarea, hosto zabal eta lantza modukoak, eta aleak, gogorrak eta gorrixkak, zilindro itxurako buru lodi bati itsatsiak dituena *(Zea mays)*.

Baduk han, Los Colimoteseko mendatea iraganik, ordoki berde baten ikuspegi eder askoa, **arto** helduak apur bat horitua. Juan Garzia

Arto frijitua tipula berriekin eta gurinarekin. Anton Garikano

Neskameak plater batean oilasko erre bat atera zuen, **artozko** buñueloez ederki hornitua, eta izeba Emilyren aurrean paratu zuen. Lopez de Arana

Ez zenuke hainbeste denbora pasatu behar **artozko** zirtzil horiek egiten. Anjel Lertxundi

2 (hitz elkartuetan)

Arto-opila da hau, banana-hostoan bildua. errekatxoan bildutako berro entsalada, ilarrak arrautza egosiarekin, **arto** pastela esnetan eta azahar lorearekin, nektarinak, marrubiak eta baso bete Malaga. Joxe Austin Arrieta

Arto-hosto kiribilduak zeuden haien oinetan, otartxoak-eta egiteko erabiltzen diren moduan txirikordaturik. Anjel Lertxundi

Ezkaratzean, **arto** txurikinez eta belar onduzko ohea, gau hori hantxe egin zezan. Pello Zabala

Entzuna izanen haiz baserritarrek **arto**-bixarra pipatzen zutela, baserrian sortutako umeok hala hasi ginen pekautzen, **arto**-bixarra lehortuta. Koldo Izagirre

16an, Santa Engrazia egunez bedeinkatzen omen zuten **arto**-hazia. Pello Zabala

Bev Shaw-k gosaria zerbitzatzen dio, **arto**-malutak eta tea, eta ondoren Lucyren gelan sartzen da. Oskar Arana

Lanak ematen zituen, bai, **arto** ereite horrek. Pello Zabala

Ez dakit nondik egongo den loturik abenduaren 12arekin, justu, ganbara handian egin ohi zen **arto**-zuritzea. Pello Zabala

Eta segur bazen lan mota frango laborari etxeetan: **arto** jorrak, **arto** biltzeak, **arto** xuritzeak, ogi joiteak, belar egiteak, belarketak, egurketak, iratze epaiteak, gisu labeak, auzolanak, xerri hiltzeak eta nik dakita zer oraino. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Horregatik diot **arto** landetatik arlo landuetara igaro garela. Pello Salaburu

Uda etxen pasatu nuen, lehen bezala belarretan aitama, anai arreba eta mutilarekin, gero **arto** jorran, eta berantago kapetak mozten, alimaleko espalak ezker sorbaldan karreatzen nituela, lorian. Piarres Aintziart

Gari zelaiak eta **arto** zein olibondo sailak desagertzearekin batera desagertu ziren haiek ere, alegia, erbiak eta galgoak. Jon Maia

Era guztietako soinuek liluratzen zuten -teilatuan euriak egiten zuen zaratak, **arto**-ganbaran artoa aletzean sortzen zenak, baina batez ere musikarenak-. Xabier Olarra

Jaka **arto**-kolorearen gainetik lepoa puztuta eta gorriturik zeukan. Xabier Olarra

Arta ganbaran triskan egizu: lapurretan egizu, alegia. Patziku Perurena

Pentsa ezak zer tripa-jan eginarazi zion apaiz likits hark gure amari, **arta**-puska hari, baina hura hain zuan bihotz onekoa, eta ez zian balorerik izan apaiz urdezikinari kontra egiten hasteko. Pako Aristi

Ene esku ukaldi gautarra ez zitzaiokeen aski: egiazko **arta** sail baten premia zeukan. Itxaro Borda

Anaiaren gerizpean **arto**-opila jaten ari direla ikusi dute joaten, bizi-bizi. Anton Garikano

Gaur artotan, aziendentzat ez bada, **arta**-soro gutxitxo ikusten dira gure hauetan. ikusi dugu zenbat enpeinu eta zenbat lan ematen zuen erein aroak, artasoro mardula, **arta**-zuztar bi artaburudunik etorriko bazen bere garaian. Pello Zabala

3 *arto beltz*

Soro zenbait, **arto beltzez** eta zekalez ereinda, erdizka landutako muinoen atzeko planoraino luzatzen ziren, ezer nabarmentzekorik eskaini gabe, azken batean. Karlos Zabala

Mutur batean gaizkataren masailak eta kartilagoak sartu, beste batean **arto beltzezko** ahia, eta onddoak tipulatxoekin, eta arrain-hazi gozatuak, eta garunak, eta hik dakian hori guztia... Jose Morales

Avigdorrek **arto beltzez** egindako pastelak maite zituelarik, goizero sartzen zen Anshel okindegian haietako bat erostera, eta ez zion uzten Avigdorri ordaintzen. Koro Navarro

Bikaina ale-nahasketa aberatsa zen: ekilorea, artatxikia, arroza, basartoa, **arto-beltza**, garia, kakahuetea, arroz oskolduna, eta olo zuritua; normala, berriz, ekilore, txori-belar, artatxiki, olo zuritu, beltxata, eta kalamu-hazien nahasketa zen. Jon Muñoz

4 *arto bihi* *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

Sakelak ikertu zizkiotelarik, atxeman zuten, batean mukanesa, ganibeta, bizpahiru **arto bihi** eta beste xehekeria zonbait. ETC-literatura, saiakera

Garraioetara itzultzeko ez nuke ahantzi behar erraitea, ogi eta **arto bihi**, lasto eta belar, behi orgetan erematen zirela. ETC-literatura, saiakera

Mamutzarrak egarriz daude Afrikan eta **arto bihiak** transgenikoaz kutsatuak Ameriketan. ETC-literatura, saiakera

Kolegiotik etxeratu eta, momentu luzeak pasatzen nituen uso polit haiei begira, maiz ogi-mami edo **arto-bihi** batzuk eskaintzen nizkiela. ETC-literatura, saiakera

Goizean goizik, hiru hogoi bat kilo ogi edo **arto bihiez** astoa kargaturik jeutsi behar zen xendera harritsuan, Leixturren behera, Irhintzarako zolan gaindi Uhaitzera. ETC-literatura, saiakera

Behiala, **arto bihiaren** selekzioa norberak egiten zuen etxean, eta gero auzoekin ale trukatzen, ondoko urtekoa ainitza eta hobea izate aldera. ETC-prentsa

Tresna zaharrek ere apaintzen dute erakusketa: **arto bihiak** garbitzeko eta banatzekoak; eskuz ibiltzen ziren, baina garai hartan iraultzatxo baten ondorioak izan zituten. ETC-prentsa

Jon Harluxet eta Xano Sallaberryk bezala, gero eta gehiago dira **arto bihia** selekzionatuz norbere etxaldeko hazia ereiten duten laborariak, hazi-etxeei erosi gabe. ETC-prentsa

Hor bi egun horietan iragan direnek gehienak kanpotiar pasaiakoak zirelarik ikusten ahal izan dute **arto bihitik** irina zer moldetan egiten den. ETC-prentsa

Bere lur zabaletarik bildu **arto bihia** etxean berean baliatzeko Fermin bere anaiarekin moldatua zuen urde hazkuntza gotorra. ETC-prentsa

Luixa etxekandereak eta hunen iloba Jean Brunok erakutsi dute denboraz familia gehienek beren etxetan ekarrarazi ogi eta **arto bihiarekin** nola egiten zen irina. ETC-

prentsa

5 *arto bizar* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Altua da, eta lotuta dauka kokospeko **arto-bizarra**. ETC-literatura, saiakera

Maitasunaren lehen silabak, jaietan iturrian **arto bizarra** erretzea, galga bakarreko bizikletatik erorita belaunak mailatuta desitxuratzea, urtegi ere ez ziren potxingoetan bainatzea, txakurra lagun Bizkargi eta Gaztelumendirainoko mendi bueltetan sioux indio ile luze menderakaitzak izatea. ETC-literatura, saiakera

Ikusiko duk: emaiok denbora apur bat eta, zigarroa barik, **arto bizarra** eroango duk ezpainetara! ETC-prentsa

Haurrek eskutan hartu dituzte horitik gorri ilunera kolore aldaera anitz dituzten **arto bizar** desberdinak. ETC-prentsa

Arto bizarra erretzen genuenetik ezagutzen dut. ETC-prentsa

Hala ere, lehenago **arto bizarra** erretzen genuen. ETC-prentsa

Hor badira amulo-erro, ogi-belar, kamamila, zauri-belar, **arto-bizar** eta arbola azal mota guzietarik, denak lehorrak. ETC-prentsa

Hegaluzea engainatu eta erakartzeko aparailuetan jartzen ziren **arto bizarrak** landutakoa ere bada. ETC-prentsa

6 *arto buru*

Etxe aintzineko paretan **arto buruak** dilindan iguzkirat, Ezpeletan biperrak bezala. Herria

Ez nian nehon ere kausitzen eta ganerrean oiloak hazkabozka hauteman nituenez, hara igotzea deliberatu nian, Manez han zitekeela, **arto-buru** bihikatzen... Itxaro Borda

7 *arto gozo*

Horien artean daude makinak (fotokopiagailuak eta garabi-kamioiak), elikagaiak (**arto gozoa**), jantziak (anorakak, galtzak, kirol oinetakoak) edo papergintzakoak (agendak, boligrafoak, paperezko zapiak). Berria - Ekonomia

8 *arto irin*

Ogi handiak, etxean egindako ogiak; gari ogiak, zekalezkoak, **arto irinarekin** eginak. Pablo Sastre

Ideiak argi zeuzkala onartzekoa zuen Jessicak, ezpainetarik eleen janiza akuilatzen zuen **arto irinezko** ogale baten pare iragana isurtzen zitzaiola andere adinduari. Itxaro Borda

Tomate berde frijituentzat, Sipseyren errezeta: Moztu tomateak zentimetro bateko xerretan, gatz-pipertu, **arto-irinetan** pasa. Pablo Sastre

Arto irina erosi dugu eta Maialenek ere taloa esnearekin probatu nahi qqqq'. Joseba Sarrionandia

Iraun behar zen, kostarik kosta, eta familietako kide azkarrenak aiduru egoten ziren, herriko etxe aitzinean, **arto irin** pixka bat, zahiarekin nahasirik, edo egoitzen berotzeko enbor zenbaiten erdiesteko. Elena Touyarou

Hegoafrikako jakia, **arto-irinez** eta urez egindako opila. Oskar Arana

9 *arto jorra*

Arto-jorratik zetorren ilunpe batez agitu zen bortxazko apaina. Itxaro Borda

Euskaldunoi ukatu egiten baitzitzaigun, gure baserrietako sasien artean ez bazen, edo baratzean porruak landatzen ari ginen bitartean egiten genituen otorduetan ez bazen, edo **arto jorran** denak aitzurrekin lerroan genbiltzala ez bazen. Pello Salaburu

Eta segur bazen lan mota frango laborari etxeetan: **arto jorrak**, arto biltzeak, arto xuritzeak, ogi joiteak, belar egiteak, belarketak, egurketak, iratze epaiteak, gisu labeak, auzolanak, xerri hiltzeak eta nik dakita zer oraino... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Uda etxen pasatu nuen, lehen bezala belarretan aitama, anai arreba eta mutilarekin, gero **arto jorran**, eta berantago kapetak mozten, alimaleko espalak ezker sorbaldan karreatzen nituela, lorian. Piarres Aintziart

10 *arto jorratzaile*

Maite genituen desagertzear zeuden mundu horiek, genituen diot, hor kanpotarrekin batera multzo berean urturik genbiltzalako, artzainak, itzainak, espartingileak, ehuleak, txokolate prixa moldatzaileak, nago idokitzaileak, **arto jorratzaileak**, sagardogileak... Itxaro Borda

11 *arto kolore*

Jaka **arto-kolorearen** gainetik lepoa puztuta eta gorriturik zeukan. Xabier Olarra

12 *arto landa*

Lehenago ez zen holako **arto landarik** Landesetan; orduan ezkurra eta pahatxa zuten beren hautuzko janaria, beraz errexkiago laketzen ziren hemengo oihanetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Pentsa! Armak kentzen ditxie, hausten bi partetan eta Aitzurre etxe batetako **arto landarat** botatzen besainka... Gero bero aldi bat huna eman ziexuten bieri, bereziki bortitzenari. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Edo berdin behizain, hor, paisolaren azpian edo... ez utzi behar behiak **arto-landarat** joaterat... Menane Oxandabaratz

Jaldaiko zelaian plantatu zen, auzogune hori kasik hutsa zelarik oraino, lur gehienak **arto landa**. Herria

Nola pasatu garen (--...) baserrietako **arto landa** zaharretatik hirietako arlo landu berrietara. (SALABURU 15). Iñaki Arranz

Arratsalde goibel eta ilun honetan otu zait lerro hauek idazten hastea, leihoak ematen didan zeharkako argiaz baliaturik, kontatu nahi baitizut zuri, gazte horri, nola pasatu garen, urte batzuen buruan bakarrik eta ia-ia ohartu gabe, baserrietako **arto landa** zaharretatik hirietako arlo landu berrietara. Pello Salaburu

Zein errepika zen? Hertzainak taldeak eskaintzen ziguna? Jutsin demagun, euripean **arto-landak** handitzen zirela edo Garindainen, bizkarra kontuarrean bermatuz deiadartzen nuen "Estatuari gerra, gerra beti, bakean utzi arte!" zoragarri hura? Itxaro Borda

13 *arto landare*

Horrela, arrautzatik irten bezain laster, gertuen dagoen **arto landarearengana** jotzen du larbak. Berria - Gaiak

Borrokatuz konkistatzen den bizitza, bultzaka hazten den **arto landarea** bezala: gora, gora, gora lurra jasoz eguzkia ikusteko. Berria - Kultura

Larruzko gauzak eta eguzkitan egositako buztinezko eltzeak saltzen zituzten Grahamstown-en, eta **arto-landareen** artean dagga hazten zuten, cannabisa. Oskar Arana

14 *arto lasto* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Natxoak eta takoak saltzen ditugu; haragiz betetako **arto lastoak** dira takoak, barazki eta saltsaz lagunduak, eta jendeari asko gustatzen zaizkio. ETC-prentsa

Bertan egiten da lo garozko azpi baten gainean, edo **arto-lastoaren** txirikorda baten gainean, denak etzanda oinak su aldera jarrita. ETC-literatura, saiakera

Erresakak, lehenengo, sakada bat ematen dizula, kanpora aterako zarelakoan suspertzen zarela, baina olatuak beherantz egiten duenean, bahitu egiten zaituela **arto-lastoz** eginiko txotxongiloa lez. ETC-literatura, saiakera

15 *arto malutasup_1* arto txigortuzko alea.

Harryk kartazala irekitzen zuen bitartean, Hedwigek Nevilleren cornflake edo **arto-maluta** batzuk hartu zituen. Katilukada bat **arto-maluta** prestatu zion. Iñaki Mendiguren

Bev Shaw-k gosaria zerbitzatzen dio, **arto-malutak** eta tea. Oskar Arana

16 *arto-olio*

"Lipido aseek, ekilore-olioak edo **arto-olioak**, esaterako, minbizia azkarrago garatzen laguntzen dute», esan zuen atzo Eduard Escrich ikerketa talde horretako buruak. Berria - Gaiak

17 *arto sail*

2001. urtearen amaieran Nafarroako Laborantza Ekologikoko Kontseiluak (CPAEN) transgeniko arrastoak aurkitu zituen **arto sail** ekologiko bitako uztetan. Berria - Harian

Eta **arto-sailean** elkartzea eta ez Setheren zokoan -galtzaileen txaboletatik metro batera- keinu samur bat izan zen. Anton Garikano

Krask egin balute **arto-sailetan**, gaitz erdi. Lutxo Egia

Lokazturik zegoen guztia, Aturri ibaiak gainez egin baitzuen hainbat tokitan, ur buztin-kolorea, adarrak eta enborrak, animalia hilak eta **arto-sail** osoak banandu rik hiri inguruko soro eta bideetan bezala ibai ertzetako kaleetan ere. Anjel Lertxundi

Genetikoki eraldatutako **arto sail** bat hondatzea leporatzen diete guztiei. Berria - Gaiak

Errekasto bat aurkitua omen zuen eta, bertan bainatzen ari zela, bi gizon ikusi, harantzaxeago, sable makur bana eskuan (halaxe esan zuen berak), **arto-sailean** barrena. Joxe Austin Arrieta

18 *arto tortilla*

Azkenean, bere etxean bukatu dugu, Rosariok prestaturiko **arto tortilla** batzuk jaten. Bernardo Atxaga

19 *arto-zuritze* ik **artazuritze**.

Herritarrak **arto-zuritzen** ari dira. Pablo Sastre

Ez dakit nondik egongo den loturik abenduaren 12arekin, justu, ganbara handian egin ohi zen **arto-zuritzea**. Pello Zabala

20 ***bazka-arto*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Bazka-arto subentzionatu denean, nekazariak **bazka-artoa** lantzera pasatu dira. ETC-prentsa

Hamar kalte ekintzatik zortzi baino gehiago larreetan izan dira: %6,9, ortuetan: %5, indaba eta artoa elkarrekin erein diren lursailetan: %4,6, **bazka-arto** sailetan. ETC-prentsa

Bazka-artoa "Zea Mays" L., Poaceae. ETC-entziklopedia

---

artobeltz *iz* kolore iluneko artoa.

Hartu aharikia -esan zion Txitxikovi-, ahari-saiheskia da, **artobeltz** -ahiarekin! Jose Morales

Niania delako hori aza-zoparekin batera zerbitzatu ohi den jaki ospetsu bat da: zerri-urdaila **artobeltz** -ahiz, garunez eta hankaz betea. Jose Morales

Abendoaren 18a aitzin helarazi behar dira **Artobeltz** talotegira. Herria

---

artobero 1 *iz adkor* pertsona handiustea.

Guztiek zuten sentsazio sekretu bat, abentura-irrikaren, jaiduren, grinen artean Enperadorea baizik ez zela gauza ordenari eusteko: Enperadorea, aldi berean sarjentu nagusi erretiratu gabea eta Bere Maiestatea, funtzionario soil eta *grand seigneur*, **artobero** eta errege. Xabier Olarra

2 ***artobero usain*** *irud adkor* andiuste usaina.

Guztia ondrosoa zen hiri hartan, eta guztia bere lekuan zegoen, guztia eta guztiok; aitoren semeei berei ere **artobero** -usaina zerien, eta etxeetako atezainek berek ere atseginez errespetatzen zuten gizarte-ordena, aldi berean mugagabea eta gizatiarra zen ordena hura. Xabier Olarra

---

artopil *iz* artirinez eginiko opil txikia.

Artopil batzuk egin dizkizut. Lopez de Arana

Txokolatea ekarri zietenean txokolatea hurrupatzen, besterik ez zitzaien entzun, eta **artopilak** mauka-mauka jaten frijoleak inguratu zizkietenean. Juan Garzia

Zezin pusketa bat aurkitu nuen eta txingarren gainean **artopil** batzuk. Juan Garzia

Artopil sail hartan, poxpolo handi bati erreparatu nion, ogirik gabeko egun bat baino luzeagoko lepoa baitzuen, eta gainean talo bat, gurina mozteko hari moduko batez inguratua. Xabier Olarra

---

artos *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi; orobat **artoso** ETCn **7** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **artos** agertzen da) izond* artatsua, arduratsua.

Gazte eta zaharragoak ere laneko bezain **artosak** mahaiko, etxeko arno eta etxean hazi atzarkitik ongi jan edan eta aratseko kantu xaramelak. ETC-literatura, saiakera

Gerlako berriez ere entzule **artos** eta arrenguratsuak zeuden auzo eta etxekoak, gertakari deitoragarrietaz Espainian hasirik, eta Gernikako bitima hobengabe haietaz, gero gisa berean Oradour-sur-Glane-koak eta beste zonbat holako! ETC-literatura, saiakera

---

artoski *adlag ipar* artaz, arduraz.

Berriz ere ganberan, **artoski** hautatu nituen jantzi beharreko arropak, zimurdura gutien agertzen zutenen artean. Aingeru Epaltza

Jainkoaren artaldearen osasunaren ardura Jainkoak berak gure gain jarri duela sinetsiz geroz, gure artzaintzako eginbideak behartzen gaitu, **artoski** begiratzera nola lehiatzen garen. Piarres Xarriton

Errepidetan markatuak diren zalutasun legeak **artoski** errespetatuko dituztela. Herria

Soil-soilik behar diozu giltzari **artoski** xingola bat ezarri, urdina eta higatua, zurean dagoenaren gisarakoa. Jon Muñoz

Raimundo Silvak Lisboako Setioaren Historiaren probak paperezko poltsan sartzen ditu berriz, aukeratu dituen lau orri horiek izan ezik, horiek **artoski** tolestu eta jakako barruko poltsikoan gordetzen ditu. Jon Alonso

Jainkoa zuzentasuna bera da, eta baitezpada nahi du bakotxak bere eginbidea **artoski** bete dezan. Xipri Arbelbide

Haren senarrak munduko basorik ederrena omen du, adiskideen plazerretarako **artoski** zaindua. Jon Muñoz

Xahartu eta eritu delarik, etxean arrañatua duen alabak, **artoski** artatu du bere ama. Herria

Azpimarratzen du biziki kasu eginez behar litazkeela izenak eman eta ez beroan bero, presaka bezala, kasu bakoitxa **artoski** aztertu gabe. Herria

François Hollande-ren arabera berritze hori zolatik hasiz egin behar da, alderdikide guziek zer dioten eta zer nahi duten **artoski** aztertuz. Herria

Eta baratzea **artoski** artatzen zuen, arratsalde osoak han iraganez, hau landa, hura jorra, hemen zurkaitzak ezar, hantxe tomateak esteka. Daniel Landart

Zenbat emakumek galdu duen bere izen ona, nahiz **artoski** gordea zukeen horrelako baliabideez eutsi ahal izan balio! Jon Muñoz

Haserrea baretu zitzaidan, Dijonetik bidalitako nire gutun ospetsu haren zatiak esku artean kausiturik, **artoski** bilduak. Jon Muñoz

Argudioak **artoski** prestatu ditu: [...]. Aingeru Epaltza

Nerekin daukat **artoski** begiratua gaucho zelarik ekartzen zuen poncho laneko jantzia. Herria

Eta beldur izan nuen, aitor dizut, hain emakume bitxiarekin, halabeharrez bazter hartara behako soil bat igortze hutsak ez ote zidan bet-betan suntsituko hain **artoski** eginiko lanaren emaitza. Jon Muñoz

Nere esku lodiak olioz bustitzen nituen eta zure nini gorputz ttipia **artoski** eta emeki manipulatzen nuen. Ramuntxo Etxeberri

Aterperako bidean, neska zerbitzariaren aurpegi agradosa, gauaren bakardade ameslarian, **artoski**, kasik kartsuki, irudimenaz marratzen dut. Piarres Aintziart

Maitasunaz anitz hitz egiten bai, baina gerra prestatzen **artoski**. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artoski ari (3); **artoski aztertu** (3); **artoski entzun** (3); **artoski irakurtu** (3); **denek artoski** (3); **hain artoski** (6); **hoin artoski** (3)

---

artoso *(ETCn **7** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **artos** agertzen da, ETCn **3** agerraldi) izond* artatsua, arduratsua.

Eskulangile **artoso** eta begi zorrotzeko, baserrietako erreminta zaharrak erosten zituan, "honek ez deutsu ezetako balio" esanaz, eta gero berak garbi-garbi egin, pintau eta

saldu egiten zituan. Xabier Amuriza

Mirra usainari eta ezti zaporeari muzin egingo litzaioke, eta zisnearen kantua eta Feboren lira doinu **artosoak** era berean azpiraturik isilduko lirateke. Xabier Amuriza

Jabetu behar dugu, baita ere, egonarri osoz sofritu ahal izateko bertutea eta gaitasuna trebetasun berezia dela, hala nola naturan ere, gizaki bat ederragoa da edo **artosoagoa** da beste batzuk baino. Joan Mari Lekuona

---

artotsu *izond* arduratsua.

Sendagile **artotsu** batek ez ditu gizaki eriaren hatzak ukitzen min emateko, baizik eta hatz eriak sendatzeko eta hatzen bidez gizaki osoa, gorputzari mesede eginez. Joan Mari Lekuona

---

artotza *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* arto saila.

Etxeko behiak bertan sartutako inoren **artotza** bat ez igartzeko moduan uzteko, iretargi bako gauean, ingeniari argia izan behar zen. ETC-literatura, saiakera

Horregatik, amerikarrak "enbortzen" ari direla esateak, bizimodu geldo lohian gizentzen, dorpetzen, fofotzen, **artotzen** ari direla esan nahi da euskaraz. ETC-literatura, saiakera

Nafarroako genetikoki eraldatutako **artotzak** dira. ETC-prentsa

Gainera, sardinerak, errotaria, olagizona, ehulea eta **artotza**-ontzigilea gehitzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

artoxehe *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* artatxikia.

Bataiatu gabe hil haur baten bihotz idortua errausturik, **artoxehe** beltz orearekin akelarrean egin botika jateak, sekulan deus ez salatzeko bertutea ematen zuen. ETC-literatura, saiakera

Leihotik sartzen zen errautsaren gibeletik, ahuntzek zizelkatu mango-ondo eta zuhurtziaz bete baobabek, bai eta **artoxehe** eta kakahuete landek ere marraztu paisaia miresgarria gozatu nuen. ETC-literatura, saiakera

-Mementoan hemengo sukaldaritzan ñame eta **artoxehea** nola erabiltzen duten eta artoarekin tortilla, tamal, atole eta pozole motak zein diren. ETC-literatura, saiakera

Kultura guztiak beti egon dira zerealen baten laborantzari lotuta: garagarra, antzinako greziarrekin eta egipziarrekin; artoa, amerikarrekin; oloa, eskandinabiarrekin; zekaleak, zeltekin; garia, Europa erdialdekoekin, eta **artoxehea**, Afrikarekin. ETC-prentsa

---

artozkiar *iz* Nafarroako Artozki herriko biztanlea.

Oraindik ere, herrira itzultzen da **artozkiarra**, oroitzapenak harri artetik berreskuratzera. Edurne Elizondo

Artozkiarren bihotzetan, samina. Edurne Elizondo

Zer bihotz-min eta nigarrak **artozkiarrentzat**! Herria

Ez zen Artozkin jaio, baina bere burua **artozkiartzat** du eta, beraz, bere herria galdu du. Berria - Euskal Herria

---

artriti ik **artritis**.

---

artritiko *izond/iz* artritisak joa; artritisak jotako pertsona.

Bazuen bezero bat, ardandegi batzuen jabea, agure **artritikoa**, bizitza guztia foiletoiak irakurtzen ematen zuena. Josu Zabaleta

Ardozale **artritikoak** esan beharko zukeen: "Sendagile hau etorri denez gero, aberats izateak atseginik ez dakar". Josu Zabaleta

Todiko herritar batek hezueri **artritiko** oso larria zuen, inola ere esertzen edo etzaten uzten ez ziona. Askoren artean

Arratsaldean gutun bat idatzi zion Iturriozi, esanez bera zela ezkontzen zen **artritikoa**. Josu Zabaleta

---

artritis *(orobat **artriti** g.er.)* **1** *iz* hezurretako giltzaduren hantura.

Artropatia kroniko eta progresiboa da **artritisa**. Berria - Gaiak

Zainak, orduan, handituarekin puztuta, luzean uzkurtu egiten dira, eta hala, **artritisa** edo gota bezalako gaitzak sortzen zaizkie gizakiei, zainetako poroak beteta geratzen zaizkielako oso substantzia gogor, lodi eta hotzekin. Santiago Iruretagoiena

Ezbairik gabekoa da, ordea, loditasunak eritasun ugari eragiten dituela, hala nola **artritisa**, hipertentsioa, bihotzeko zein arnas aparailuko gaitzak edota minbizi mota jakin batzuk. Berria - Harian

Vioxx botika erruz erabiltzen zen orain urte batzuk **artritisa** eta antzeko gaitzak tratatzeko. Berria - Gaiak

Artritisak jota nago. Koro Navarro

Agure xahar musugorri bat zen, sendoa, eskuak lodi-lodiak zituena, lanak eta **artritisak** itxuragabetuak. Juan Garzia

Fermin gaixo zegoen, **artritisak** jota, eta dibertimenduzko zientzia liburuak irakurtzen ematen zuen denbora guztia. Josu Zabaleta

Rayren aita, arreba eta anaia hilak ziren, eta amak orgatxo batean eserita ematen zuen egun osoa, **artritisak** elbarrituta. Koro Navarro

Babarrun jaunak erreberentzia egiten dio datorrenari, "berez makurtu egiten da, baina izorratuta dago, **artritia** du eta konpondu egin behar dugu", dio Gorritik. Berria - Kultura

Pozoina sendatzeko ez dakit, baina **artritisa** sendatzeko gure artean asko erabilia izan da "lizar ardoa" izeneko pozima, alabaina. Patziku Perurena

Artritis-egoera larriagotzen ari zitzaion. Josu Zabaleta

Berrogeita hamar urtetik gora ez dago bat **artritis** oinazerik ez duenik, eta uste dute ez dela lanarengatik hori! Josu Zabaleta

2 irud/hed

Beldur naiz **artritis** abertzalea sendatzeko ez ote den kapaz izanen Lizarrako ardoura berria. Patziku Perurena

Hala eta guzi, ez da posible, ezin liteke, honenbeste pozoin, abere gose, lurmin eta **artritis** politiko sendatzea gure Lizar abertzale berri honek! Patziku Perurena

3 ***artritis erreaktibo*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Gehienak izan ohi dira edo Artritis Erreumatoidearen sailekoak edo Espondiloartropatietakoak (Artritis Psoriasikoa, Espondilitisa, **Artritis Erreaktiboa**...). ETC-prentsa

4 ***artritis erreumatoide*** *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Artritis erreumatoide zenbait hezur loturetan, besoetako eta hanketako lotura txikietan azaltzen den hantura da. ETC-entziklopedia

Orain gutxi hil da izeba, **artritis erreumatoide** baten prozesu luze batek jota. ETC-literatura, saiakera

Bederatzi urterekin **artritis erreumatoide** degeneratiboa aurkitu zioten medikuek eta orain ohean bizitzera derrigortuta dago. ETC-prentsa

Gernuko infekzioa, sukar erreumatikoa edo **artritis erreumatoide** izatean gertatzen da hori, besteak beste. ETC-prentsa

Gorputz adarretako beste gaixotasun batzuekin ager daiteke: **artritis erreumatoidea** eta lupusa, adibidez. ETC-prentsa

Helduen oin laua -gaixotasun hartua, ez sortzetikoa- oina osatzen duten egitura desberdinetako aldaketengatik gertatzen da: **artritis erreumatoideagatik**, hezueriagatik, kolpeak eta hausturagatik edo umeen oin lauen eboluzioagatik. ETC-prentsa

Badira sindrome honekin lotzen diren beste gaitz batzuk ere: hileko aurreko sindromea, menopausia, **artritis erreumatoidea**, giltzurruneko gutxiegitasuna, diabetesa, hipotiroidismoa, gizentasuna, tuberkulosia, infekzio eta tentsio arterial altua. ETC-prentsa

Alabaina, egun batzuen buruan kasu gehiagoren berri jakin zen: **artritis erreumatoidea** eta Crohnen gaitza tratatzeko antiinflamatorio bati zenbait heriotza -tuberkulosiagatik- egotzi zitzaizkion. ETC-prentsa

Horrek gaixotasun autoimmuneak sortzen ditu, esterako **artritis erreumatoideak**. ETC-prentsa

5 ***artritis septiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Beste datu batzuek, hala nola zenbat glukosa eta azido laktiko dagoen, **artritis septikoen** (30 mg/dl baino glukosa gutxiago eta azidemia laktikoa) diagnostikoa egiten lagundu diezagukete. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***gaztaroko artritis idiopatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Gaztaroko artritis idiopatikoa haurtzaroan ematen den artritis ohikoena da. Gaixotasun autoimmunea da eta jatorri ezezaguna du. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artritisak jota (3)

artritisaren aurkako (3)

---

artritismo *iz* artritisa, tanta-hezueria eta beste zenbait eritasun pairatzeko joera.

Txikitan buruko minen eta hipokondriarako joeraren bidez azaleratu zitzaion **artritismoa**. Josu Zabaleta

---

artropatia *iz* hezurren giltzaduretako eritasuna.

Batez ere hogei eta berrogeita hamar urte bitarteko emakumeek (kasuen %75) jasaten duten **artropatia** kroniko eta progresiboa da artritisa. Berria - Gaiak

---

artropodo *iz* animalia ornogabea, oin artikulatuak eta gorputz segmentatua dituena.

Artropodoen taldea zen, alta, multzorik handiena, bertan aurkitzen baitira animalia landarejale gehienak: "Intsektu espezieen kopurua izugarria da, batez ere, ugaztunekin konparatuz gero. Berria - Euskal Herria

---

artrosi *iz* hezurren giltzaduren eritasun degeneratiboa.

Duela lau urte **artrosia** eta beste zenbait gaixotasun diagnostikatu zizkioten, eta aurtengo udan haren osasunak okerrera egin du. Berria - Euskal Herria

Gaitz koronario larria eta tumore gaiztoaz gain, **artrosia** ere badu eta makuluen laguntza behar du ibiltzeko. Berria - Euskal Herria

Horretaz gain, bihotzeko gaitzak, bihotzekoak, lesioak giltzaduretan eta bizkarrean, **artrosiak** eragiten duen mina eta, guzti horien ondorioz, mugitzeko zailtasunak ere suerta dakizkioke pazienteari. Berria - Harian

Duela gutxi erretreta hartu du bizkaitarrak, 29 urte dituela, aldakako **artrosiak** behartuta. Berria - Kirola

Orain artean, artritisaren eta **artrosiaren** kontra egiteko eta mina arintzeko agintzen zuten medikuek. Berria - Gaiak

62 urte dituen pertsona bat, ebakuntza egin berri diotena, azken hilabeteetan makuluen laguntza behar izan duena, minbizi prozesu larrian sartu dena, **artrosi** arazoak dituena. Berria - Euskal Herria

Bizkarrezurraren inguruko giharrak laxatu ditugu, ornoak urrundu ditugu, eta **artrosi** motaren bat baldin badago artikulazioetan, hori ere desblokeatu dugu. Berria - Gaiak

---

artrosidun *izond* artrosia duena, artrosiak joa.

Tabakoa atera dut orduan, nire atzamar **artrosidunekin** eginiko porrutxo bat. Koldo Izagirre

---

artroskopia *iz* hezur giltzadura baten barnealdearen azterketa medikoa.

Talde zuri-gorriko medikuek jakinarazi zuten, Miguel Escalona atezainari **artroskopia** egingo diotela, hilaren 10ean, eskuin belauneko kanpo-meniskoan. Berria - Kirola

Atzo egin zioten **artroskopia** eta apurtuta dauka ezker belaunaren aurreko lotailu gurutzatua. Berria - Kirola

Orain **artroskopia** eta horrelakoekin segituan konpontzen dute gehiena. Berria - Kirola

---

artseniato *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)* *iz* azido artsenikoa base batekin konbinatuz sortzen den gatza.

Berun **artseniatoa** fruituei botatzen zitzaien pestizida gisa. ETC-literatura, saiakera

Satterlee doktorearen esanean -artsenikoaren toxikologian aditua da-, intsektizida organikoek artsenikoa neurri handi batean ordezkatu badute ere, tabako-landareek lehengo pozoia jasotzen jarraitzen dute, tabako-laborantzako lurzoruak blai eginda baitaude orain pozoi astun eta disolbaezin samar baten hondakinekin: berun **artseniatoa**. ETC-literatura, saiakera

Hobetu diren lagin-bilduma eta analisiek erakutsi dute aurrez uste baino **artseniato** As (III) ugariago dagoela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Artsenikoaren kasuan, Desulfotomaculum bakterio sulfato-erreduktoreak **artseniatoa** (AsO4-3) erreduzitu eta artsenitoa (AsO3-2) ekoizten du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zura babesteko erabiltzen den konposatu ez-organikoa, uretan disolbagarria, hala nola kobre **artseniato** amoniakala edo kobre **artseniato** kromatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adelita **artseniatoen** klaseko mea mineral arraro bat da. Kaltzio eta magnesiodun **artseniato** hidroxilo hidroxilatua da. ETC-entziklopedia

Aerugita nikel **artseniato** konplexu arraro bat da, eta formula aldakorra du. ETC-entziklopedia

Honek sodio **artseniato** soluzio bat sortzen du. Kobre sulfato soluzio bati gehituta, prezipitatu berde bat sortzen zuen, kobre **artseniatoarekin** disolbaezina. ETC-entziklopedia

---

artseniko **1** *iz* gai bakuna, hauskorra, altzairuaren gris kolorekoa, guztiz pozoitsua. *(As*; at. z. 33; at. m. 74,91).

Txanpinoiek merkurioa edo **artsenikoa** xurgatzen dute eta horrek arazoak ekar ditzake, sarritan janez gero substantzia horiek pila daitezkeelako. Berria - Euskal Herria

Beste pozoi batzuek, hala nola zianuroa, **artsenikoa** eta eritasun infekziosoek sorturiko toxinak, modu konplikatuagoan funtzionatzen dute: entzimen erreakzioak nahasten dituzte edo, areago, globulu gorriak desegiten; azkenean, hala ere, bat bera da emaitza: garuna ito egiten da. Irene Aldasoro

Horra sulfurozko prezipitatu horia, eta anhidrido artseniosoa; **artsenikoa**, alegia, Maskulino delakoa, Mitriades-en eta Madame Bovary-ren hura. Juan Garzia

Merkurioak, esaterako, aldaketa neurologikoak sortzen ditu haurrengan, eta **artsenikoak**, berriz, azaleko eta biriketako minbizia izatzeko arriskua handitzen du. Berria - Gaiak

Askok zalantzan jartzen dute saioon fidagarritasuna, gai berak animalietan eta gizakietan eragin erabat ezberdina izan dezakeela argudiatuta: penizilina, esaterako, hilgarria da akurientzat; **artsenikoak** gizakiak hiltzen ditu, baina ardiek kopuru izugarriak jan ditzakete. Berria - Gaiak

Artsenikoa har ezazu, bai, har ezazu dena. Xabier Olarra

Bazkaltzera gonbidatu genuen patioaren txoko batean, eta **artsenikoa** eman genion kafe-zopatan. Javi Cillero

Bangladeshen minbiziarekin hiltzen diren 270.000 lagunetatik 200.000 **artsenikoz** kutsatutako ura edateagatik gaixotzen dira. Berria - Gaiak

2 ***artseniko oxido*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Bolognako Hugo (1252 eta 58 bitartean hila) eta Te odoriko Borg ognonik (1205-98), Arnau de Vilanovak eta beste batzuek **artseniko oxidoa**, antimonioa eta Merkurio gatzak erabili ohi zituzten botikak prestatzeko. ETC-literatura, saiakera

3 ***azido artseniko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Azido artseniko. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

artsenioso *izond* anhidridoez mintzatuz, artsenikotik eratorria.

Horra sulfurozko prezipitatu horia, eta anhidrido **artseniosoa**; artsenikoa, alegia, Maskulino delakoa, Mitriades-en eta Madame Bovary-ren hura. Juan Garzia

---

artseniuro *(corpusean ez dago; ETCn **58** agerraldi) iz* artsenikoaren eta gai sinple baten arteko konbinaketa.

Galio **artseniuro** intrintsekoaren kasuan, giro-tenperaturako eroankortasun elektrikoa 10-6 (O-m) -1 da; elektroi- eta zulo-mugikortasunak 0,85 eta 0,04 m2/V-s dira, hurrenez hurren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haatik, gehienetan **artseniuro** edo artsenato eran agertzen da. ETC-entziklopedia

Galio nitruro eta galio **artseniuro** konposatu eran erdieroale gisa erabiltzen da, batez ere LED diodoetan. ETC-entziklopedia

---

artu ik **arto**.

---

artule ik **artile**.

---

arturiko *izond* bretoien Arturo erregearena; errege horren literatur zikloari dagokiona.

Hori da, iturri bat -jarraitu zuen Madame Margueritek-, iturri bat eta neska bat, kondaira **arturikoetan** bezala. Iban Zaldua

Ziklo **arturikoari** loturiko ipuinak idatzi zituen *Percival e outras historias*-en. Berria - Kultura

---

arturratu, arturra, arturratzen da *ad* argi-urratu.

Biharamunean emaztea esnatu zen lehenik; **arturratzen** ari zuen, eta ohetik ikusi zituen lur sail ederrak bere aurrean zabaldurik. Anton Garikano

---

arturratze *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* egunsentia.

Arturratzearekin batera gorri kolorea zabaltzen hasi da gaur nire aurpegian. ETC-literatura, saiakera

Arturratzea zen eta zuloaren ahotik elur malutak jausten ari ziren. errusiarraren gorpuak mamu itxura zuen. ETC-literatura, saiakera

---

artxakur ik **ardi 2**.

---

artxapezpiku ik **artzapezpiku**.

---

artxapezpikugo ik **artzapezpikugo**.

---

artxapezpikutegi ik **artzapezpikutegi**.

---

artxapezpikutza ik **artzapezpikutza**.

---

artxiba ik **artxibo**.

---

artxibadore *iz* artxibategia, artxiboa.

Pedriño bakarrik zegoen lehen solairuko gela txiki hartan; mahai-aulkiak eta **artxibadore** mordoaz gain ezer gutxi gehiago zeukan egoitza argitsuak: idazkari-lanak orduka egiten zituen loba batek erabiltzen zuen mahaian idazteko makina eta faktura itxurako paperak pilatzen ziren. Josu Landa

---

artxibategi *(orobat **artxibotegi** g.er.)* **1** *iz* artxiboa.

Artxibategi bilakatu nuen neure garajea. Joxan Elosegi

Kondenu horren iturria, 2000 urteko apirilean Demoek Lapurdiko akta historikoa (1789) hartu zutela Paueko **artxibotegian** eta erakutsi Lapurdin, erranez Euskal Artxibategia Baionan izanen zenean itzuliko zutela. Herria

Van Daan tiradera eta **artxibategi** guztiak miatzen ari da, eguneko gutunen bila. Josu Zabaleta

Urte andana batez, Donibane Lohitzuneko, Hendaiako, Baionako, Ziburuko, Bordeleko **artxibotegiak** miatu zituen. Aurelia Arkotxa

Kondenu horren iturria, 2000 urteko apirilean Demoek Lapurdiko akta historikoa (1789) hartu zutela Paueko **artxibotegian** eta erakutsi Lapurdin, erranez Euskal Artxibategia Baionan izanen zenean itzuliko zutela. Herria

2 (izenondoekin)

Eta **"artxibategi** nazionalik ez dugunez", erakunde publikoek bete ez duten esparrua bete du Agirrek Chuecaren iritziz, "ondo bete ere". Berria - Harian

Hainbat **artxibategi** pribatutan gordetzen dira hark eginiko lanak, eta horien artean kronika bat egin zuela nabarmendu zuen behin Koldo Mitxelenak *Textos Arcaicos Vascos* liburuan. Berria - Kultura

Istorio korapilatsu hura zegoen, egon ere: Rollebonen iloba, 1810ean tsarraren poliziak eraila, haren paperak bahituak eta **artxibategi** sekretuetara eramanak, eta ehun urte geroago, sobietek, botereaz jabetu ondoren, Estatuko liburutegian utzitakoak; bertatik ostu nituen nik 1923an. Monika Etxebarria

Bulegoa sinplea zen eta, oker ez banago, **artxibategi** metaliko bat zegoen bazter batean, eta gurutzea eta Estatu Batuetako bandera zintzilik horman. Iñaki Zabaleta

Hala nola euskal erakustokia edo Bonnatenea, natur erakustokia edo **artxibategi** munizipala. Herria

Jendea fitxatzeko erabiltzen duten gelan zaude, eta bertako **artxibategi** polizialean gelditu dira zure fisionomia eta ezaugarri fisikoak betiko sailkatuta. Rafa Egiguren

Hain zuzen ere, goiz hartan bertan izana nintzen udaleko **artxibategi** nagusian, nire zuhaitz genealogikoa osatzeko. Anjel Lertxundi

Artxibategi erraldoi bat nuen zain bulegoko mahaian. Joxan Elosegi

Lizarrako gure **artxibategi** apal hartan, halaz ere, bi kartoiren artean eta xerrenda hori batez loturik aurkitu nuen orri-sorta hura irakurririk, eta bertan ematen ziren xehetasunak, zertzelada itsusiak eta xehetasun hits batzuk ikastean, erraiek benetako mina ematen zidatela nabaritu nuen. Txillardegi

---

artxibatu, artxiba(tu), artxibatzen du *ad* paperak, dokumentuak eta kidekoak artxibo batean gorde.

18: 30 aldera arte ezin izan zuten parte-hartzaileek beren sinadura ezarri aipatu testamentuaren orri bakoitzean, ez eta notarioak zegokion agiri multzoarekin batera **artxiba** zezaten agindu ere. Bego Montorio

Miraria badirudi ere, Guardia Zibilak kasua **artxibatu** egin zuen, poliziek nozitutako kolpeak ere ez baitziren lehen unean ziruditen bezain larriak izan. Harkaitz Cano

---

artxibatzaile *izond* altzariez eta kidekoez mintzatuz, artxibatzeko balio duena.

Txuspok bulegoetan erabili ohi ziren burdinazko armairu **artxibatzaile** horietako bi utzi dizkit. Harkaitz Cano

---

artxibatze *iz* paperak, dokumentuak eta kidekoak artxiboan gordetzea.

Azken urteetan bai Veneziako jaialdian eta bai espazio sozialetan aurkeztutako proiekzioetan, kultuko irudi bihurtzen den esperientzia historikoa **artxibatze** goiztiarretik aske utzi dute. Berria - Kultura

"Ez da frogatuta gelditu, ezta zantzuen bitartez ere, Jose Miguel Etxeberriaren desagerketa delitu izan zenik", dio epaileak martxoaren 31n kaleratutako **artxibatze** autoak. Berria - Euskal Herria

Artxibatze lanak egiteko irizpide tekniko bateratuak bultzatuko dituzte eta espektro elektromagnetikoetan izan daitezkeen aldaketak aztertu nahi dituzte, aurreikuspenez jokatzeko. Berria - Euskal Herria

Bestalde, Bertsozale Elkarteak, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bitartez, biltze eta **artxibatze** lan etengabean dihardu, artxibo hori interesik duen ororen esku jarririk. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

artxibazain ik **artxibozain**.

---

artxibo *(orobat **artxiba** g.er.)* **1** *iz* dokumentuen bilduma, eta bilduma hori gordetzen den lekua; informatikan, fitxategia, informazio banako bakunen multzo egituratua. ik **agiritegi**; **artxibategi**.

Artxibo batean mota askotako agiriak gorde daitezke, ez bakarrik agiri politikoak, baita agiri ekonomikoak, gizarte gaiei buruzko txostenak... gaur egun ikaragarrizko dokumentazioa sortzen da eta etorkizunean dokumentazio hori historialariek erabiliko dute historia egiteko. Berria - Harian

Artxibo horietan informazio asko dago FBIk eta CIAk Euskal Herriarekin eta erbesteko Jaurlaritzarekin garai batean izandako harremanen inguruan. Berria - Kultura

Estudioan lan-mahaia eta **artxiboa** bortxatu egin dituzte; paperak alde guztietatik barreiaturik. Oskar Arana

Behin jauregiaren barruan, harrerako nesketako batek argazkien **artxiboa** non den erakutsi dit, eta hortik aurrera aske ibil naiteke. Edorta Jimenez

Alde hori berak nahi zuen bezala eduki zuenean, bera zelarik aurrezkien **artxiboa** erabiltzen zuen bakarra eta bezero haiek tratuak berarekin bakarrik zituztenean, denek egin ohi dutena egin zuen berak ere. Xabier Olarra

- **Artxiboa** kontsultatu behar dut. Koldo Izagirre

Ibaetako Physics Center-eko laborategian, Mireiak bere ordenagailu eramangarria piztu eta PRANA **artxiboa** zabaldu zuen. Fernando Morillo

Fraideeneko hondar urtean, bere **artxiboa** erakutsi zidan, etxean izan nintzaion batean: hogei bat karpeta, bete-beteak, apal luze batean alfabetoz antolatuak. Aingeru Epaltza

-Hilabete eskas bat egin dut bertan -azaldu zion gazteak, ordenagailuko **artxiboa** aztertuz-. Fernando Morillo

Artxiboa eraldatuta dagoela. Fernando Morillo

Litekeena da **artxiboa** alarma faltsua izatea. Fernando Morillo

Haien **artxiboa**, haien oroimena izango zen Franco: "Ahaztutakoa gogorarazten diot jende honi". Xabier Olarra

Antzeko beste **artxiboekin** arazoak izan dira beste erakundeek edo norbanakoek utzitakoarekin. Berria - Harian

Denbora baten buruan berriro deiturik, jaramon egin zidaten; **artxiboen** arduradunak eskaria jaso zidan. Edorta Jimenez

Salamancan jarraitzen dute Valentziako eta Balearretako (Herrialde Katalanak) **artxiboek**. Berria - Mundua

Bi problema badaude airean: hainbat iturri desberdinetako **artxiboen** erreferentzia batuketa eginen ote den, leku berean aurkituko direnaz gain. Herria

150 lagun auto-inkulpatu ziren **artxiboen** "bahitzeaz". Herria

Paueko **artxiboen** auzian euskaraz mintzatzeko eskubidea ukatu die epaileak euskal departamendua aldarrikatu dutenei. Berria - Euskal Herria

Ordena erlijiosoen **artxiboetako** arduradunei beren esku dituzten agiriak EAHN eratzeko emateko proposatuko diete. Berria - Harian

Guardia Zibilaren, ministerioen, militarren eta Espainiako bestelako erakundeen **artxiboetan** agiriak lortzea garesti dago. Berria - Euskal Herria

Hauxe da nere begiek **artxiboetan** usuenik ikusi dutena: [...]. Patziku Perurena

Urteak pasatu ditut eskaera horiek **artxiboetan** bilatzen, baina gorderik daude nonbait. Berria - Euskal Herria

Proiektuaren arduradunek azaldu dutenez, orain arte ia ezinezkoa izan da **artxibora** jotzea, irudi jakin bat aurkitzeko 40.000 kutxatan arakatu behar zelako. Berria -

Kultura

Baionan **artxiborik** ez izateak ikasleak eta ikerlariak trabatzen dituela salatzeaz aparte, artxiboaren sortzearen eskaerari indar bat eman zioten. Berria - Euskal Herria

Dena den, web orrialde batetik **artxiboren** bat norberaren ordenagailura jaistea delitua dela argitu du. Berria - Harian

2 (izenlagun eta izenondoekin)

Alfredo Asiainen arabera, ahozko **artxibo** erraldoi honen onuretako bat Nafarroan iraun duten hizkuntza eta kulturen artean dauden harremanak nabarmentzea izango da. Horretaz gain, **artxibo** publikoetako dokumentazioa katalogatzeko eta zabaltzeko 240.253ko diru laguntzak ematea erabaki zuen. Berria - Harian

Lan hori **artxibo** pribatuetan egiteko, 102.202 euro emango ditu. Berria - Kultura

Beste hainbat historialarik bezala, aspalditik eskatu du Josu Chueca historialari eta EHUko irakasleak **Artxibo** Historikoa. Berria - Harian

Bilbo izango du kokaleku Euskadiko **Artxibo** Historiko Nazionalak (EAHN). Berria - Harian

Zapaterok, berriz, gezurra gezurraren gainean esatea eta **artxibo** informatiboak ezabatzea leporatu zion Aznarri. Berria - Harian

PP Alderdi Popularrak bi agintaldietako **artxibo** informatiko guztiak ezabatu zituela esan zuen gobernuburuak agerraldian: "Ez dago agiririk, ezta dokumentu informatiko bakar bat ere". Berria - Mundua

Artxibo Nazionaletik hainbat agiri sekretu atera izana onartu eta John Kerry hautagai demokrataren hauteskunde kanpainako aholkulari postuari agur esan dio Bergerrek. Berria - Mundua

Lehendabizi audioa **artxibo** digital bihurtzen dugu, eta gero editatzen dugu. Berria - Euskal Herria

Horregatik, "sortu, gorde, aurkeztu eta zabaltzeko", sarrera libreko **artxibo** unibertsalak garrantzi handia izango du Artelekuren 2006ko egitarauan. Berria - Kultura

Diktadura garaiko **artxibo** militar guztiak irekitzeko agindua eman zuten atzo, hain zuzen ere, garai ilun horri hasiera eman zion estatu kolpearen 30. urteurrenaren bezperan. Berria - Mundua

Hamabost idazle aukeratu, eta COFF Fundazioaren **artxibo** oparoan dauden hamaika argazkietatik bat hautatzeko eskatu, argazki horretan oinarrituta narrazio bat harilkatzeko. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Elizako kidea izatea edo ez nire erabakia zela; eta, hirugarrenik, kristau elkarteko kide ez izateko hartutako erabakiaren azalpen idatzia dagokion **artxibo** liburuan geratuko dela. Berria - Harian

Kultur sailean, Bonnat erakustokian obrak eginen dira, hiriko **artxibo** sail guzien artean numerizazio bateratua pikoan emanen dute. Herria

Irudiari eta soinuari lotu formazioa, sorkuntza, ekoizpen eta **artxibo** bilgune bilakatu nahian ari da Miarritze hiria. Berria - Kultura

Merkatal Ganbarak ere horra eraman lezake bere **artxibo** zerbitzua; azkenik Pauen kokatzen diren gure **artxibo** andana bat ere horra ekarriko lituzkete. Herria

Hasteko, kontserbazioa, Mediatekan aurkituko den **artxibo** fondoari esker. Berria - Kultura

Batere urritu gabe, emendatzen ari zela zirudien altzari, objektu eta **artxibo** olde handi hark irentsiko ninduen beldur nengoen. Joxan Elosegi

Zer, ahozko kulturetan aurkitzen ditugun oroimen zehatz eta **artxibo** tankerakoez? Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kultur **artxibo** partikularren artean, euskal kulturaren ikuspegitik, aberatsena da. Berria - Kultura

Uarkape kiroldegitik Oñatiko Probintzia **Artxibo** Historikora eramango dituzte dokumentuak, eta erabat lehengoratu ahal direnak lehengoratu ondoren itzuliko dituzte Arrasatera. Berria - Kultura

Gertatuarekiko fideltasuna gordetzeko, zenbait politikariren adierazpenak eta epaiketak azaltzerakoan irudi **artxiboetara** jo du, aktoreekin berreraiki beharrean. Berria - Kultura

Hurrengo pausoa: Neskak mezu elektroniko pila bidaliko dizkio, irudi, ahots- **artxibo** eta guzti, postak gainezka egin arte. Antton Olano

Ordenagailu- **artxibo** sail bat begitantzen baitzaio bere oroimena. Xabier Olarra

Udal, familia eta enpresa **artxiboetako** dokumentuak biltzen dituzte, batik bat Irargin. Berria - Harian

Gasteizko Udal **Artxibora** joz, erraz ikus daiteke 1950eko hamarkadaren erdialdea arte etxebizitza-bloke bakarra egon zela Zumakera pasealekuan. Iban Zaldua

Udal **artxiboetan** diren paperetan, eta inoiz musikariak itsuak direlarik, dultzainak ageri dira, txistuak, brenkak, danbolinak, soinuak panderoekin, soinuak gitarrekin. Iñigo Aranbarri

Informazio hori guztia polizia **artxiboetatik** atera zutela azaldu zuten; eta informazio horien jatorria, funtsean, atxilotuen polizia deklarazioak, "informazio konfidentzialak" eta instrukzio eginbideak zirela. Berria - Euskal Herria

5 *(Michel Foucault-ek erabiltzen duen adieran)*

Agerikoa da ezin dela oso-osorik deskribatu gizarte baten, kultura baten edo zibilizazio baten **artxiboa** ; ezta, ez dago zalantzarik, garai oso baten **artxiboa** ere. Xabier Arregi

Bere osotasunean **artxiboa** ez da deskribagarria, eta saihestezina da bere gaurkotasunean. Xabier Arregi

Arkeologiak diskurtsoak deskribatzen ditu **artxiboaren** ingurunean ematen diren jardute bereziak bezala. Xabier Arregi

Arkeologia hitzak ez du balio aurrerapen gisara; berak hitzezko jardutearen azterketari ekiteko lerro bati izena ematen dio, besterik ez: maila baten zehaztapena da: enuntziatuarena eta **artxiboarena** ; eremu baten mugapena eta argitzapena: jokoan jartzen ditu erregulartasun enuntziatiboak eta positibotasunak; eraketa-arauak, deribazio arkeologikoa, a priori historikoa eta era horretako kontzeptuak. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artxibo bat (14); **artxibo batean** (3); **artxibo baten** (3); **artxibo egiten** (3); **artxibo erantsi bat** (3); **artxibo guztiak** (3); **artxibo historiko nazionala** (3); **artxibo historikoaren** (3); **artxibo hori** (8); **artxibo horiek** (3); **artxibo horietan** (4); **artxibo militarrak** (4); **artxibo nagusia** (3); **artxibo nagusian** (3); **artxibo nazionala** (5); **artxibo osoa** (3); **bere artxibo** (3); **du artxibo** (5); **euskadiko artxibo historiko** (4); **nafarroako artxibo** (3)

artxiboa ez da (3); **prana artxiboa** (3)

artxiboak ez (3); **artxiboak gordetzen** (3); **artxiboak trukatzeko** (3); **ditu artxiboak** (3); **duten artxiboak** (3); **musikaren euskal artxiboak** (3); **salamancako artxiboak** (3); **soinu artxiboak** (4)

artxiboan bertan (3); **bere artxiboan** (4); **leitzako udal artxiboan** (3); **salamancako artxiboan** (3)

artxiboaren kudeaketa (3)

artxiboetara jo (3)

artxiboko irudiak (3); **udal artxiboko** (3)

artxibotik atera (4)

---

artxibogintza *iz* artxibatze lana.

Artelekurekin batera, Tolosako eta Oñatiko artxiboak eta Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunea dira **artxibogintzan** Gipuzkoarentzat "bandera ontziak", Txabarriren arabera, eta hirurak eraldatuko dira "errotik" Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroarekin. Berria - Kultura

Artxibogintzako lanak egiten dituzte batik bat zazpi langilek Bergaran, baina baita diru laguntzen kudeaketa ere. Berria - Harian

---

artxibotegi ik **artxibategi**.

---

artxibozain *(orobat **artxibazain** g.er.) iz* bere ardurapean artxibo baten kudeaketa duen pertsona.

Jesus Etaio Zalduendo **artxibozain** eta kazetariaren artikuluak argitaratu ditu Txalapartak. Berria - Kultura

Berehala jakin zuen Hegoaldeko erdaldun orok Agirre Lazkaoko **artxibozaina** zela, hala atera zen haren alde hamaika politikari, ikerlari eta euskaltzale. Iñigo Aranbarri

Gervasio Etaio aita Gamazadaren kronistetako bat izan zen, Lau-buru, Eco de Navarra eta *El Tradicionalista* egunkarietan, eta Jesus Etaio bera **artxibazaina** izan zen. Berria - Kultura

Athleticen egoitzan Duñabeitia izena aipatzea oraintsuko historiaz hitz egiten hastea denez, **artxibozainari** galdera berez etorri zaio. Edorta Jimenez

Haien bizitzen **artxibozaina** bilakatu behar ote nuen? Joxan Elosegi

Agirre eta Etxandi **artxibozain** beneditarrak atxilotuta eduki zituzten miaketek iraun zuten bitartean. Berria - Harian

Azken urteak **artxibozain** laguntzaile moduan egin zituen Loiolan, idazle klasikoren baten idazki bat edo beste aurkitzeko irrikaz. Berria - Kultura

Akos Vajkay, aita, **artxibozain** jubilatua da, eta bere zaletasun bakarra, ez kasualitatez, genealogia eta heraldika dira. Berria - Kultura

Galdeketaren amaieran **artxibozain** -erroa erakutsi zuen Agirrek, eta poliziei deklarazioaren kopia eskatu zien, baina "sumarioa sekretua" zela erantzun eta Lazkaoko artxiboaren lorpenik bitxiena izan zitekeena ukatu zioten. Berria - Harian

---

artxidiakono *iz* diakonoen burua, elizbarrutiaren zati bat administratzeko egitekoa duena.

Historia Salonitanorum, Tomas Spalatoko **artxidiakonoak** idatzia. Askoren artean

Kapeilauak, kalonjesak, egoitzadunak, kalonjeburuak, kalonjeburuordeak, herrixkako kalonjeak, abdalak, kutun-saltzaileak, **artxidiakonoak**, hierarkak, eskolako lehenak, benefiziodunak, kapitularrak, [...]. Xabier Olarra

Nolaz eta erregina berriaren gerizpean ari zirela deklaratzen baitzuten, "heretikoak" Nafarroatik kanpora zitzatela fermuki galdatzera bidaiatu zen delako diputazioa Paueko errege-jauregiraino: Baigorriko bizkondea, Lüküzeko kondea, Armendaritzeko jauna, Donibaneko erretorea, Baionako eta Akizeko apezpikuen **artxidiakonoak**, Nafarroa Behereko bortz hirietako eta sei ibarretako jendeak... Aingeru Epaltza

---

artxidiozesi *(corpusean ez dago; ETCn **54** agerraldi) iz* erlijio katolikoan, zenbait elizbarruti barne hartzen dituen goragoko eliz egitura. ik **diozesi**.

Esate baterako, Donostia eta Gasteizko elizbarrutiak Iruñeko **artxidiozesi** barruan daude, eta Bilbokoa ostera Burgoskoan. ETC-literatura, saiakera

Miamiko **artxidiozesi** batek (AEB) 12,9 milioi dolar (9,89 milioi euro inguru) ordaindu ditu, elizbarrutiko apaizek egindako sexu gehiegikeriengatik. ETC-prentsa

Are nabarmenagoa izan zen motibazio politikoa 1956an **artxidiozesien** arteko zatiketa koherentzia gutxikoan, EAJk 30eko hamarkadan Erromari eskatutakoaren aurka; zatiketak badirau gaur egun. ETC-zientzia, zuzenbidea

Santa Zeziliaren basilika-katedrala Albi hiriko katedral katolikoa da, Albiko **artxidiozesiaren** egoitza dena. ETC-entziklopedia

1520 eta 1538 artean Iruñe eta Tuterako **artxidiozesiaren** administratzaile apostolikoa izan zen. ETC-entziklopedia

Gutun honetan, bi probintzien arteko muga Kemi ibaian ezarri zen eta, honela, herrixka, Ostrobotniaren barruan eta Turkuko **artxidiozesiaren** menpe gelditu zen. ETC-entziklopedia

Joan Paulo II.ak kontsakratu zuen 1993an, eta Madrilgo **Artxidiozesiaren** egoitza da. ETC-entziklopedia

1965ean elizbarrutia **artxidiozesi** bilakatu zenean, artzapezpiku bihurtu zen. Vatikanoko II. kontzilioan parte hartu zuen. ETC-entziklopedia

Tuterako elizbarrutia (latinez eta ofizialki:) antzinako Eliza Katoliko Erromatarraren Euskal Herriko elizbarrutietako bat izan zen, egun Iruñeko eta Tuterako **artxidiozesiaren** barruan dagoena. ETC-entziklopedia

---

artxiduke *iz* gainerako dukeak eta dukesak baino aginpide edo autoritate handiagoa duen dukea.

Mollyri, aitortzen zuen, ulergaitza egiten zitzaion gerra haren nondik norakoa; gauza bakarra zekien, **artxiduke** bati -dena delakoa zela ere- tiro egin ziotela Sarajevon. Mirentxu Larrañaga

Artxidukearen hilketak ondorio latzak eragingo ditu. Lopez de Arana

---

artxidukesa *(corpusean ez dago; ETCn **78** agerraldi) iz* gainerako dukeak eta dukesak baino aginpide edo autoritate handiagoa duen dukesa.

Hemeretzi urterekin, Leopoldina Austriako **artxidukesarekin** ezkondu zuten Pedro. ETC-literatura, saiakera

Martzako Beltranek agindu zizun artxiduke-**artxidukesaren** laguntzara joateko, eta zuk, gixajo horrek, ez dakit derrigorrez ala ausardiaz, onartu egin zenuen. ETC-literatura, saiakera

Maria Kristina Espainiako erreginak, Austria eta Hungariako **artxidukesa**, eraikitzeko enkargua egin zuen bertan oporraldiak igarotzeko. ETC-literatura, saiakera

Hain zuzen, Luis Augusto delfinaren eta Maria Antonieta Austriako **artxidukesaren** arteko ezteiak ospatzeko 1770. urtean inauguratu zuten Versaillesko Errege Operako agertokian estreinatuko dute lana. ETC-prentsa

Ana Austriakoa (Valladolid, 1601eko irailaren 22a - Paris, 1666ko urtarrilaren 20a), Espainia eta Portugalgo infanta, Austriako **artxidukesa**, Borgoina eta Herbehereetako printzesa, Frantzia eta Nafarroako erregina ezkontidea (1615-1643) eta bi erresuma hauetako erreginordea (1643-1647) izan zen. ETC-entziklopedia

Luis II.a Jogalia (1506-1526), Hungaria eta Bohemiako errege, Austriako Maria **artxidukesarekin** ezkondua (1522). ETC-entziklopedia

Ezta bere amaginarreba ere, Sofia **artxidukesa**, eta bolada luzeak ematen zituen jauregitik kanpo. ETC-entziklopedia

Isabel Habsburgokoarekin, Austriako **artxidukesa** eta Fernando I.a Germaniako Erromatar Inperio Santukoa Fernando I.a Habsburgokoaren alaba. ETC-entziklopedia

---

Artximandrita *iz* eliza grekoan, monasterio jakin batzuetako nagusia.

Denen agintaria Aita Guebokinder **Artximandrita** zen. Jon Alonso

Artximandrita, Jefea, edo, laburrago esateko, argentinarren erara mintzo zen emakume hura eseri egin zen. Jon Alonso

Gazteluan ez dute amore emango, eta katarrek eman duten epea bukatzen denean, **Artximandritak** konbentzituko ditu aska dezaten. Jon Alonso

---

artxipelago *(orobat **artxipielago** eta **arkipelago** g.er.)* **1** *iz* uharte multzoa, eskuarki jatorri geologiko bera duena.

Spitsbergen Norvegiako uharte bat da, Svalbard **artxipelagoko** handiena. Fernando Rey

Okupazio ugariren ondorioz, eta baita haien aurka ere, eraikitakoa da Mediterraneoko **artxipielago** txiki honen hiriburu historikoa. Berria - Mundua

Valleta hiri bizia da, **artxipielagoaren** bihotz administratibo eta ekonomikoa. Berria - Mundua

Kiribati **artxipelagoan** itsas parke handi bat eratu nahi dute, bertan dauden koral arrezifeak babesteko asmoarekin bereziki. Berria - Gaiak

Antarktika jarriko duzu erdian, Kuba den har txikia handitu egingo duzu, eta Cabo Verdeko **artxipelagoa** ere sendotuko duzu, eta Afrika guztia nahi baduzu. Joseba Sarrionandia

Hitz egin zidan urpean zeuden su-mendiez, zeinetarik uharteak eta **artxipelagoak** sortzen baitziren. Joan Mari Irigoien

Sumatra iparraldean 6,2 graduko beste itsasikara bat izan da; Andaman eta Nicobar **artxipelagoetan** ere izan dira ikarak. Berria - Harian

Joan den asteko larunbatetik, 900 etorkin baino gehiagok lortu dute **artxipelagora** iristen. Berria - Mundua

Laurogei urtez Espainiaren aurka borrokatzera, munduko beste puntako **artxipielago** bat kolonizatzera, ingelesen kontrako itsas batailetan arituz. Iban Zaldua

"Vladimir Ilich" errepikatzen zuen ahapean, Aldazek mahaiko xikinen **artxipielagoan** zeukan galdua behakoa. Koldo Izagirre

Kasu askotan iragaiten den bezala, hiri nagusiaren hizkuntza, erran nahi baita botereak erabiltzen duen hizkuntza, **arkipelago** guziari nahi izan diote inposatu. Ramuntxo Etxeberri

Alabaina, berrogei urtez, espainolek baino askoz gehiago eginen dute **arkipelagoaren** azpiegituren sortarazteko eta bermatzeko. Ramuntxo Etxeberri

Hemen, **arkipelago** txoko guzietan, pertsona "xuria" amerikarra da eta "Joe" deitzen dute! Ramuntxo Etxeberri

2 irud/hed

Ahanzturaren **artxipelagoko** irla bihurtzen baitira izenok. Edorta Jimenez

Bertsolari honek ideia errepublikanoak zabaldu zituen bertsoaren bidez, eta horregatik ahanzturaren **artxipelagora** kondenatu zuten. Berria - Kultura

Orain Euskal Herria hautsirik dugu, barne hesi gaindiezinez bete **artxipelago** bilakatua. Markos Zapiain

---

artxipielago ik **artxipelago**.

---

artxipote *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* arabazozoa.

Artxipoteak ehunka eta ehunka! ETC-prentsa

Euskaraz izenak beste aldaera batzuk jaso ditu: Arabazozo, **Artxipote**, Artxoxo, Auseta, Behor-txori, Dorrezozo, Gaztelazozo, Haragi-zozo, Kanpozozo, Kastillazozo, Larzozo, Naparzozo, Tordantxa, Tordokanpanario. ETC-entziklopedia

---

artxirradikal *izond adkor* erabat erradikala.

Harold Bloomek asmatua omen den "Erresuminaren Eskola" kontzeptuaz baliatzen da Rorty, garai batean **artxirradikalak** eta iraultzaileak edozein gauzatan izan eta orain ezein kausatan sinesgabeak direnak izendatzeko. Joxe Azurmendi

---

artxisekretu *izond adkor* erabat sekretua.

Floridako itsasertzetik 90 miliara hortxe-hortxe ainguratuko zuten Hemingwayren yatean elkarrizketa **artxisekretuan** jarduteko. Edorta Jimenez

---

artxiterrorista *izond adkor* erabat terrorista.

Tel Aviveko gobernuak **"artxiterrorista"** izendatu du Jassin, eta honela zuritu du haren hilketa: "Ehunka israeldarren hilketa eragin zuen erakunde bateko burua zen". Berria - Mundua

---

artxizahar *izond adkor* erabat zaharra.

Faltsifikazio berrizaharrotan gehienez ere gure gustuak eta gure alderdia modernoagoak izango dira ("La Voz de su Amo" beti da modernoa, hots, aldian aldikoa); jokabidea bera **artxizaharra** da. Koldo Izagirre

---

artxo *iz* bildotsa.

Oihu, garrasi eta odol artean, pitili txikiarekilako **artxoa** jazarri zitzaion. Itxaro Borda

---

artzai ik **artzain**.

---

artzaile ik **hartzaile**.

---

artzain *(ETCn **16.124** agerraldi; orobat **artzai** g.er. eta **arzain** g.er.)* **1** *iz* ardiak zaintzen dituen pertsona.

-Orduan, joan aurretik esango didazu zer irizten diezun **artzainen** abenturei -eskatu nion amultsuki. Patxi Ezkiaga

Bi hitzez esplikatzen dit **artzainak** bere ardiak bordara eramaiten dituela, goizeko alha egina delakoan, eta arratsaldeko eguzkia heldu. Piarres Aintziart

Hotzaren etorrerarekin batera, ordea, ardiak eta **artzainak** agertuz joaten dira ezari ezarian, beren txakurrekin. Jokin Muñoz

Har ditzagun euskararen heriozko agonia bere muturren aurrean bizitzen ari zen gizon baten sentimenduak edo irudipenak; gizon hori **artzaina** zen, eta beraz, eskolan txorakeria intelektual gutxi ikasitakoa. Iñaki Segurola

Ez didate askotan eskatzen, baina ez daukat inolako arazorik, ze umetan ardi artean hazi nintzen, nire aita **artzaina** izan zen eta. Jon Arretxe

Poliki eta isilik sartu ziren denak sukaldean, ziurraski **artzainak** Belengo estalpera hurbiltzen ziren bezala, Jesus jaio zen gauean. Aitor Arana

Ondoan, arditegi berria, modernoa, hiru lau ehun ardi aise aterbetuko dituena, bazkatuko dituelarik neguminean **artzainak** eta deitziko oraiko tekniken arabera. Piarres Aintziart

Orduan, bospasei gizon armatu bakarraren kontrako borroka horretan, erasoak irauten zueno, **artzainak** bazekien hobe zuela arroila sakon baten gerizan geratzea. Itxaro Borda

Hamahirugarren menderako eliza unibertsal bihurtua zen, Zibilizazio Siriakoa desegitean Abbastar Kalifaldiaren kolapsoagatik ohiko **artzainik** gabe gelditutako ardiei babesa ematen ziena. Iñaki Mendiguren

Nehork alabaina ez zuen sekula gure erako **artzainik** ikusi, ardika ibilki irratia edo liburu bat eskuan. Itxaro Borda

Morganen algarak Txindoki puntako **artzainak** entzuten zituen. Joxean Sagaztizabal

Horregatik, gehien hunkitu zuten liburu-atalak irakurtzen zizkien batzuetan, edo mendian ibiltzen diren **artzainen** bakardade eta pozaz mintzatzen zitzaien, edo zeharkatu ohi zituen hirietan ikusitako nobedade nagusienak aipatzen zizkien. Xabier Aranburu

Azpijokoa egin zioan horri nik dakidan batek, eta berealdiko diruak galdu zizkian Zizurkil aldeko terrenoak saldu zituenean -azaldu zigun **artzainak**. Bernardo Atxaga

Zelai inguruan ardiak zebiltzan, ez asko, eta urrun samarretik **artzaina** txistuka, eta zaunkaka zebilen bere zakur beltza ikusi nituen. Aitor Arana

Egunaren argi guztia biltzen hasita zegoen eguzkia, **artzaina** bere ardiak eskortara bezala. Anjel Lertxundi

Israelen arbasoak - Abrahan, Isaak eta Jakob patriarka handiak - beren familiak hartu eta bizimodu ibiltaria zeramaten **artzainak** izan ziren, herririk eta etxerik gabeak. Jose Antonio Mujika

Luzatu nahi badu, har bitza misterio hauek: gure ama Birjinak santa Elisabeti egin agerraldia, **artzainak**, Jesus haurraren erdainkuntza, hiru erregeak eta abar; eta laburtu nahi badu, ipinitako batzuk ere ken ditzake. Patxi Altuna

Lapurretan ikusi zutela adierazi zioten erregeri; **artzainaren** zorrotik eurek sartu zuten ogi-opil bat atera zuten. Karlos Linazasoro

Artzainak direla, alegia, ez cowboy-ak Joe Aguirre zitalaren behargin biak. Iñigo Aranbarri

Azkenean bakean utz zezaten agindu behar izan zuen, eta **artzaina** bere bidean joan zen, urtero garai hartan egiten zuen bezala. Elena Touyarou

Hark bazekien horretaz, **artzaina** izaki maiz egin baitzuen lo mendian. Juan Luis Zabala

Bila eta bila luzaz ibili ondoren, **artzainak** ahuntza Deioko gaztelu barruan aurkitu zuen, ipuru baten ondoan. Martin Anso

Hiru mila ardi zituen **artzainak**, zakurrak ere proportzioan behar izango baitzituen, gobernatuko bazituen, beti sor zitezkeen ardi beltzei lepotik heldu eta lurrari muin eginarazteko. Jon Maia

Hirulau (edo bosei) hilabete aurretik begia emana eduki du **artzainak** artaldean, akatsen bategatik haragitako bereiztua; nere ume denboran artantzu aharikoa, zikoroxta, alondoa eta holakoak izaten ziren endemas arakaitako. Patziku Perurena

Behin, Cabareteko mendian, otsoaren larrua jantzi zuen eta otso itxurak hartuta, **artzainek** ehiza zezatela nahi izan zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta Olatrane horrek bazuen beste izen bat, **artzainek** emana ziotena: Olatrango pilotagia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Sarri, gizakiak bi taldetan banatzen ditugu: **artzainak** eta ardiak. Jenaro Garate

Ardiak inguru haietan ibiltzen zituen **artzaina** zekarten gidari. Koldo Izagirre

2 *iz* apaiza.

Gero argitaratu zen adibide bat baizik ez dugu aipatuko, Oskar Pfister-ek, Freuden jarraitzaile zen Züricheko **artzain** protestante batek, ezezagun geratu zen artista espresionista batez egin zuen analisia. Josu Zabaleta

Axolarik ez zuen hondarrean, Enez Eussako elizako **artzainarekin** adosturik erabaki genuelako itsasoan edo gerla batean zendu Denez gaixoaren azken egoitzara sutsuki laguntzea, euriaren eta haizearen gerizan naski. Itxaro Borda

O'Halloranek maltazko edari beroak atera zituen denentzat eta Fownes's Streeteko Callan's-en zegoenean bulegariburuari eman zion erantzunarena kontatu zuen; hura, ordea, eglogetako **artzain** liberalen estiloko erantzuna zenez, onartu behar izan zuen ez zela Farringtonen erantzuna bezain zorrotza. Irene Aldasoro

Ahotsa Edel jaunarengandik hartua zuela ematen zuen **artzain** protestante batek bukatu zuen gaua, Jainkoari juduak eta kontzentrazio esparruetan, espetxeetan eta Alemanian atxilotuta zeudenak zaintzeko eskatuz. Josu Zabaleta

Bazitekeen 150 bat apez, apezgai eta fraide frantses, fraide erakasleak bestalde - eta bi **"artzain"** protestant, haiek ere frantsesak. Marzel Etxehandi

Eguerdiko hamabiak: ganbaran jarraitu dut ikasten, diakonoak, apaizak, **artzainak**, aita santuak ikasten... Josu Zabaleta

Bazitekeen 150 bat apez, apezgai eta fraide frantses, fraide erakasleak bestalde -eta bi **"artzain"** protestant, haiek ere frantsesak. Marzel Etxehandi

Druidak, iz. pl. Antzinako zelten erlijioko apaiz eta **artzainak**, giza sakrifizioen erakarpen indar apala erabiltzeari muzin egiten ez ziotenak. Xabier Olarra

3 (izenondoekin)

Egun batez, **artzain** gazte bat pasatu zen inguru haietatik, eta Inesek bere leizera eraman zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gure taldean lagun bakar batek zeukan Tolosaraino hurbiltzeko baimena: "Zotaltxiki" izeneko **artzain** xahar batek. Txillardegi

Mutil gaztearen ametsa **artzain** alemaniar batekin bizitzea zen, testuaren bukaeran jartzen zuenez. Karlos Zabala

Esteparen alderdi horretan **artzain** siberiarrak ibiltzen ohi dira urtaro beroan, nahiko larre baitago han haien abere talde ugarientzat. Karlos Zabala

Ardi bat galdu, eta, artaldea utzirik, ardi bila doa **artzain** txarra. Joxerra Garzia

Ez, etxe berri bat egiten denean bezala, aurrekoa arbuiatu eta lurrera botaz, baizik eta **artzain** hilaren carvinga zuhaitz batean aurkitu, eta haren lerro batzuk areago markatzeko gogoa sentitu duen lagunaren espirituarekin. Bernardo Atxaga

Ikusten zen, ostera, **artzain** bakartiren baten borda zela; armairu bakarra zegoen, eta gizonezko janzki merke batzuk, txapel zahar bi eta abarkak baino ez. Edorta Jimenez

-Eta, irakurtzen jakinik, nolatan zara **artzain** soila? Xabier Aranburu

Bidean hogei bat minutu baino ez generamala, borda baten atarian **artzain** zahar batekin egin genuen topo. Juan Luis Zabala

Artzain gezurtiaren ipuinean bezala, ordea, gezurretakoa izan da aldarria, edo abiatzeko gurariak eragindakoa hobeto esanda, autobusa etorri baita, bai, baina herri artean dabilena, ez beraiek zain zeudena. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta, **artzain** agurgarri baten hitz-jario haatik prediku bat zirudiena eteteko beldurrik gabe. Jon Muñoz

-Busturia arrantzale eta **artzain** txiroen lurraldea da. Joanes Urkixo

Eta urtero-urtero, udaberria berriz Ararat mendian iratzartzen denean, **artzain** altu eta bizkorrak, begi beltz eder eta triste eta behatz luze eta mehekoak, Küp aintzirara ailegatzen dira beren txirulekin, loreen, usain azkarraren, koloreen eta lur gorri-beltzaren ondora. Fernando Rey

Eta beste bat, euskalduntasunaren mamiaren muinaren funtsaren porruaren bila dabilen zientifikokoloa: Joanes Azatxun **artzain** sano eta arras tipikoa hartu eta analisia franko egin zizkioten han. Markos Zapiain

Erran nahi baita ezen gehiago bizi zela eliztarrei beha bere buruari baino, ebanjelioko parabolako **artzain** onaren molderat. Joan Mari Irigoien

Kus-kusaren zaporea berraurkitzen nuen, Burgosko karrikak eguerdian betetzen dituen olio usaina, Tetuangoetan airean dabilen mihilu urrina, **artzain** greziarren txistuak, hunkiturik nengoen. Monika Etxebarria

Baina harrotasunaz bai, aditua nauk; eta jendeak, kanpoaldeko ezaugarririk gabe, odol eta arraza berekoak sentitzen diren moduan, nik ere sortaldean emandako aste haietan ulertu nian haiek guztiak jaun prestuak zirela, are gamelu-**artzain** zoldazuenak ere. Xabier Olarra

Hildakoetarik anitz errugabe dela argi dago, beren duar-herrixketatik irten ez diren laborari eta **artzain** xumeak. Xabier Montoia

-Artzain aleman dotorea, bai -nik. Txillardegi

Mendian aterpea bilatu zuten borda batean, baina **artzain** kabroi batek laguntza eman zien soldaduei haien bila joateko. Jokin Urain

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baserri eta **artzain** girokoen artean bazen erreparatzeko lehia. Pello Zabala

Halako batean, Sope-ara jaistekoak ziren **artzain**-familia haietako batzuei eman beharreko mandatua oroitu eta Oriol bidali zuen hara, enkarguarekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Atxagak esan zuen aspaldian, berak mendian ezagututako jendearen antipodetan zegoela Joanes, eta egiazko **artzain** jendearekin harreman apur bat izan duen edonork gauza bera sinatuko luke. Xabier Mendiguren Elizegi

Harreman horiek eta elkarren arteko jokamoldea gidatzen edo eratzen duten balioak, gizarte bakoitzak ditu bereak, bere esperientzia historiko-sozialaren arabera (ezin dituzte balio berdinak eduki basamortuko **artzain** gizarte batek eta tribu armatu lur berrien konkistatzaileak). Joxe Azurmendi

Halako batean, ordea, sortu bezain tupustean isildu zen ekaitza, eta esnea **artzain**-kaikuan bezain bare gelditu zen itsasoa. Anjel Lertxundi

Harryri ez zitzaion espero bezain ona iruditu **artzain**-pastela. Iñaki Mendiguren

Ganbela bateko burdin trangatik eskegita, arrasto hitsezko **artzain**-larru batek zaintzen du artaldea, bakar-bakarrik. Itziar Otegi

Hiru gizonek behorrak geldiarazi zituzten, eta Kapistun haiekin geratu zelarik, Martin eta Bautista bata alde batera eta bestea beste aldera apartatu ziren, ea inguruan babeslekurik, etxolaren bat-edo, **artzain**-bordaren bat-edo, aurkitzen zuten. Koro Navarro

Orobat dio Lekuonak **artzain** aroan sortua dela bertsolaritza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Dena da hemen kapritxokoa, elkarren aurkakoa eta berzia; ohitura primitibo eta ohitura endekatuen nahastea; xalotasuna eta ustelkeria; noblezia eta bastartkeria; **artzain** bizimodua eta gerla zibila [...]. Koldo Izagirre

Artzain-familia duk gurea, baina igeltseroa zuan nire aita. Jon Muñoz

Zanpa zanpa jausten dira beharrik eta sartzen Ahartzako lepoan harri gorriz egin **artzain** etxola eder batean. Michel Oronoz

Eta zakur arrak **artzain** -xakur emearen gibeletik, herdea zeriela. Eneko Bidegain

5 *arimen artzain*

Ez **arimen artzain** : ardien artzain, eta ez erretorika arkadikoz edo burubide bitxiz, pozik eta gustura baizik, lurraren eta belarraren amorez, eta bihotzaren joriz. Juan Garzia

6 *artzain bisita* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Berantxago Pariseko euskalduneri egin zuen bere "**artzain bisita** ", hango presoak ahantzi gabe. ETC-literatura, saiakera

Horrek eguneroko bizitzari zer dakarkion deskribatzen du alemaniar apaiz batek, apur bat puztuta, 1594an herri batera **artzain-bisita** egin ondoren bidalitako gutun honetan: ETC-literatura, saiakera

7 *artzain eleberri*

51 orriko (102 orrialdeko) liburuaren bi herenak bertsotan eginak badira ere, lehen zatia prosan idatzia dago, **artzain eleberria** da. Berria - Harian

Badirudi **artzain eleberria** 1567koa dela, baina hor dauden kantak edo poemak garai berekoak dira? Batzuk bai, seguru asko. Berria - Kultura

8 *artzain joko*

Aipu ditu ere birlariak eta toki pollita egiten diote lehengo **artzain-joko** batzueri. Herria

Azaroaren 27an, larunbat aratsaldeko 5etan, Jacques Blotmintzatuko da, Baionako Mattin Megadendan, Euskal Herriko ohiduretaz, berezikiago mendi eskualdetakoetaz: ardi deizte, ile moxte, iratze pikatze, mendiko sute, **artzain joko** eta bertze... Herria

Pilotaz bestalde bazuketen beste jostamolderik ere, nola baitzen " **artzain jokoa** ". Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

9 *artzain makila*

Gero, artzainak lekututakoan, koblakari bat udaberri-usain goxoko lurrean belaunikatzen da, urrumaka ari baitzaio, bere **artzain-makilan** bermaturik, eta kantan hasten da. Fernando Rey

Esadazu arren zer gertatzen den -hasi da Leandro, erratz-kirten bat **artzain-makilatzat** harturik. Anjel Lertxundi

Ibar beltz-ilunetan banabil ere, ez dut inolako gaitzen beldurrik, zu nirekin baitzaude: zure **artzain-makilak** lasaitzen nau. Elizen arteko biblia

10 *artzain mate* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Artzain matea edota Artzain xake matea, xakean ero matearen ondoren xake matea emateko modurik azkarrenetakoa da, eta zuriaren lau mugimendu eta beltzaren hiru mungimenduekin gauzatzen da, nahiz eta beltzekin gauzatzea ezohikoagoa izan. ETC-entziklopedia

11 *artzain-mutil*

Harriturik gelditu ziren bentako guztiak Dorotearen ederraz; baita Kardenio, **artzain-mutilaren** gorpuzkera egokiaz ere. Patxi Ezkiaga

"Mutikoak zoragarriak dira Marokon", aipatu nuen nik punta horretatik helduz elkarrizketari, eta gogoan nituela, gure gidari txikia ez ezik, errepidean gelditzen ginenean hurbiltzen zitzaizkigun **artzain-mutilak** , tabako truke laranjak eskaintzen zizkigutenak. Bernardo Atxaga

12 *artzain nagusi*

Huskeriatzat jotzen dugu **Artzain nagusiari** arditxo bat kentzea, honen alde gurutzean deiadar handiz eta negar-malkoz erregu egin bazuen ere. Askoren artean

Horrela, **artzain nagusia** agertzean, inoiz zimelduko ez den aintzazko koroa jasoko duzue. Elizen arteko biblia

13 *artzain-neska*

Orduan bai ibiltzen ziren **artzain-neska** eder eta malezia gabeak, adats eta ile hutsetan, ibarrez ibar eta muinoz muino, estali beharreko hura estaltzeko behar zirenez beste soinekorik gabe; lotsa-legeak beti estaltzeko agindu ohi duena alegia! Patxi Ezkiaga

Arkume zaintzak dituen lanetan trebeak ohi dira artzaintsa edo **artzain-neskak** . Pello Zabala

14 *artzain nobela*

Arabarraren **artzain-nobela** bere testuinguru literario europarrean kokatzen du lehenik, Pizkundean ohikoak ziren gisa horretako nobelak eta nobelagileak aurkeztuz eta Lazarragarena haiekiko definituz. Berria - Kultura

Montemayorren testua imitatuz **artzain nobela** idatzi zuen Lazarragak 1567 aldean, euskarazko lehena, eta baita literatur tradizioa eta ahozkoa jasotzen dituzten amodiozko poemak ere. Berria - Harian

15 *artzain txakur* artaldeak zaintzeko txakurra. ik gorago **9.**

Dobermanak, **artzain-txakur** alemanak, *ridgeback*-ak, *bull terrier*-ak, *rottweiler*-ak. Oskar Arana

Bere aita atzerritik etorritako artzaina zen, **artzain txakurrak** hezten ibilia zena. Berria - Kultura

Artzain txakurrak ehiza-txakurraren inguruan jarraitzen zuen usnaketan. Joxemari Urteaga

Arazoa konpontzeko, beren mendeko berriak giza artalde eta abere-saldotzat hartu zituzten, eta nomaden **artzain-txakurren** giza ordezkoak sortu zituen administratzaile eta soldaduen esklabo-"etxe" baten forman. Iñaki Mendiguren

16 *artzain-txakur aleman*

Txakurrak aztoratu egiten dira Lucy ikustean: dobermanak, **artzain-txakur alemanak** , ridgeback-ak, bull terrier-ak, rottweiler-ak. "Txakur zaindariak, guztiak" dio hark. Oskar Arana

Artzain-txakur alemanetan handienak haginka egiten dio armari, ahotik bitsa dariola, amorratuta. Oskar Arana

17 *artzain zakuto*

Irteten ari zela ohartu zen gelako kantoi batean zegoela bere **artzain-zakutoa** . Xabier Aranburu

18 *euskal artzain-txakur*

Euskal artzain txakur emea da Argi. Berria - Euskal Herria

19 *hiruko artzain-joko* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Hiruko artzain-jokoa lurraren gainean makilekin markatuz, zurezko taula baten gainean zurezko piezez, paperaren gainean arkatz... joka daitekeen eta Euskal Herrian —eta munduko beste toki askotan— aspaldi-aspaldidanik jokatzen den artzain-joko izeneko buru-jokoaren 3x3 gelaxkako aldaera da. ETC-entziklopedia

20 *pirinioetako artzain-txakur* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Euskal artzain txakurren, **Pirinioetako artzain txakurren** eta galzorian dauden arrazen 16. erakusketa. ETC-prentsa

Border collie, Belgikako artzain txakurra, uretako txakurra, **Pirinioetako artzain txakurra** , kanixea... asko dira. ETC-prentsa

Jatorriz, Suitzako Alpeetakoa eta Italiaren iparraldekoa da. Txakur itzain ezagunenetakoa da, **Pirinioetako artzain txakurrarekin** batera. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ameriketan artzain (3); **ardien artzain** (4); **artzain aleman** (4); **artzain andrearen** (3); **artzain bat** (22); **artzain besta** (4); **artzain bizia** (3); **artzain bizimodua** (3); **artzain egin** (5); **artzain egona** (3); **artzain eguna** (9); **artzain etxola** (5); **artzain familia** (3); **artzain gabeko ardiak** (3); **artzain gazte** (7); **artzain gaztea** (3); **artzain gisa** (5); **artzain hasi** (4); **artzain ibili** (3); **artzain izan** (4); **artzain joan** (3); **artzain jokoak** (3); **artzain nobela** (5); **artzain on** (4); **artzain ona** (33); **artzain poetak** (3); **artzain protestant** (4); **artzain txabola** (7); **artzain txakur** (4); **artzain xakur** (69); **artzain xakur lehiaketa** (12); **artzain xakur xapelketa** (23); **artzain xakur zoingehiagoka** (4); **artzain xakurrak** (7); **artzain xoil** (4); **artzain xume** (3); **artzain zahar** (4); **artzain zaharrak** (3); **artzain zakur** (8); **egiazko artzain** (3); **ene artzain etxolak** (11); **euskal artzain** (6); **gure artzain** (16); **iparraldeko artzain** (3); **urepeleko artzain** (3)

artzainik gabeko ardiak (4)

---

artzainburu *iz* artzainen burua.

Han zegoen, egun hartan, Jaunaren santutegian gelditua, Saulen zerbitzarietako bat; Doeg zuen izena, Edomgoa eta Saulen **artzainburua** . Elizen arteko biblia

artzaingo *(orobat **artzango** g.er.)* **1** *iz ipar* artzaintza.

Artzaingoa ez da ongi ezagutua eta lagundua, ez jendeen ganik, ez administrazionearen ganik. Herria

Haütatü dit artzainen kantoria zeren eta **artzaingoa** beit da gure herriari lotürik den jakitate bat eta ekonomiko sail oso bat. Menane Oxandabaratz

Iratiko soroan prestatzen ari den proiektu turistiko-ekonomikoan **artzaingoak** toki osoa ukan dezan. Herria

Eskukaldi bat baino gehiago ukanak zituen Ermitak jende horien partetik **artzaingoan** hasi zelarik, eta lehenik aipatu behar dena Ahartzako borda eskaini baitzioten, alokatzen edo berdin kitorik uzten. Michel Oronoz

Balantsunen aitak, errotik fededuna izanagatik, semearen beharra zeukan **artzaingorako**, egoera ikusiz agian Jainkoak baino gehiago. Itxaro Borda

Eüskarazko argitalpen honek, frantsesezkoaren balde, 36 ebilbidetzaz xehartarzünak emaiten dütü, bai eta honenbeste gei eta jakinbehar aipatzen ere (günekal ikus daitean zerbait berezi, etxegintza, **artzangoa**, kültüra, eta beste...). Herria

2 *irud*

Xo, bada galde bat, Vietnam-eko gazte batena: apezten bada, gure diosesan nahi omen luke ereman arimen **artzaingoa**. Herria

---

artzainor *iz* artzainak erabiltzen duen zakurra.

Aita heldu zen komunetik, eta orduantxe ireki ziren epaiketa aretoko ateak, poliki abiatzeko eskatu zigun beste **artzainor** batek, banan-banan emanen zigutela epaiketara sartzeko baimena. Koldo Izagirre

Halako batean, **artzainorak** zaunkaka, alarma inguru osoan, eta artaldeak gauerdian; basapizti ez-nolanahikoak izan behar zuten zakurrok, beraien ahausien lakarra aintzakotzat hartuz gero behintzat. Joxe Austin Arrieta

---

artzaintsa *iz* emakumezko artzaina.

Artzain eta **artzaintsa** gazte baten arteko elgarrizketa bat da. Herria

Arkume zaintzak dituen lanetan trebeak ohi dira **artzaintsa** edo artzain-neskak. Pello Zabala

Artzainek zaindari bat bezala, **artzaintsek** bi santa dituzte: Genoveva eta Germana. Pello Zabala

Ahapaldi horietan, zaldun batek gora baino gorago goratzen zuen **artzaintsa** eder bat, Arkadia delako lurraldean. Aingeru Epaltza

Uztaritzen, ***Artzaintsa*** *gazte baten bozkarioak,* 1893an, lehena. Michel Oronoz

Moda berria da erregea ezkontzen baitzen lehen **artzaintsarekin**. Herria

---

artzaintxo *iz adkor* artzain xumea.

Bera bilakatu zen berehala **artzaintxo** haren ardi, eta ahopeka zabaldua zen, landatar Dalila berri hark, Bibliakoak bezala, gizagajo fidakorregi haren ilea moztu bazuen ere, ez zuela beste horrenbestez bestelako apaindurarik gabe- gabe utzi haren kopeta. Josu Zabaleta

Etxea berak imajinatu zuen bezalakoxea da: altzari kaxkarrak, apaingarri mordoiloa (portzelanazko **artzaintxoak**, behi-arranak, ostruka-lumaz egindako euli-zanpagailu bat), irrati baten durundioa, kaioletan txoriak txilioka, katuak oinen artean nonahi. Oskar Arana

---

artzaintza **1** *iz* ardiak zaintzeko lanbidea. ik **artzaingo**.

Otsoen edo lehortearen arriskupean ibiltzen dira beti artzainak, eta horrexek egiten du **artzaintza** are bizigarriagoa. Xabier Aranburu

Tazito eta Zesarrengandik dakigunez, **artzaintzan** jarduten zuten batik bat; horregatik, barbaroen legeen kodeak artalde eta abere-taldeez ari dira ia guztiak. Iñaki Iñurrieta

Paraje ihar elkor haietan sarri ikusi ohi da **artzaintzan** dabilen artzainik, ardi-borro arre horietako xorta batekin. Pello Zabala

-Zaldun jauna, zigorka ari natzaion mutil hau nire morroia da; inguruotan dudan artaldearen **artzaintzan** ari zait. Patxi Ezkiaga

Nahi zuen une berean zeukan **artzaintzara** itzultzea. Xabier Aranburu

Uste dut **artzaintzaz** aserik, San Francisco aldera jo duela bizitzera. Itxaro Borda

-Euskal kulturaren ardatza laborantza da -zioten guztiek aho batez-, partikulazki **artzaintza**. Itxaro Borda

Jainkoaren artaldearen osasunaren ardura Jainkoak berak gure gain jarri duela sinetsiz geroz, gure **artzaintzako** eginbideak behartzen gaitu, artoski begiratzera nola lehiatzen garen, haren artalde guziko fededunen beti zaintzera, gorputzen gaineko arriskuetarik, bai eta arimen galbidetarik. Piarres Xarriton

2 (hitz elkartuetan)

Cervantesen ironia **artzaintza**-nobelari buruz. Patxi Ezkiaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **mendiko artzaintza** (3)

---

artzakur *iz* ardiak zaintzeko erabiltzen den zakurra.

Ate ondoko zakur-zuloa, **artzakurrarentzako** etxolatxoa edo eta zakur gonazalearentzako saskitxoa kristauen asmazioak dira, eta ez da kasualitatea, ez horixe, musulmanek gurutzearen aldeko gerrariak zakurrak deitzea, gaitzerdi zerriak deitzen ez bazieten, gutxienez halakorik ez da jaso. Jon Alonso

---

artzango ik **artzaingo**.

---

artzanor **1** *iz* abereak zaintzeko zakurra, handia eta sendoa. ik **artzakur**.

Badira hainbat mila urte posible dela hautespen-egitamu bat martxan jartzea gizakien artean, eta pekindar txakurrak eta **artzanor** alemanak edo daniarrak eta bassetak bezain leinu beren artean desberdinak sortzea. Juan Garzia

2 ***nafar artzanor*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Nafar artzanora edo Pirinioetako artzanora Euskal Herria Euskal Herriko bertako txakur arraza bat da. Garai batean askoz zabalduagoa egon zen Euskal Herri guztian barrena, joan den mendeko erdira arte. ETC-entziklopedia

Eka zuen izena Pirinioetatik ekarritako **nafar artzanor** zuriak; oporretan zela ikusi eta "maiteminduta" etxera ekarri behar izan zuen, Forcadaren hitzetan. ETC-literatura, saiakera

3 ***Pirinioetako artzanor*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Nafar artzanora edo **Pirinioetako artzanora** Euskal Herriko bertako txakur arraza bat da. Garai batean askoz zabalduagoa egon zen Euskal Herri guztian barrena, joan den

mendeko erdira arte. ETC-entziklopedia

---

artzantza ik **artzaintza**.

---

artzapez 1 iz ipar apezpikuak bere barrutiko eskualde baten buru izendatzen duen apaiza; apaizari ematen zaion ohorezko titulua.

Kiril **artzapezaren** semea ez ezik, **artzapeza** bera ere ekarri zuten. Jose Morales

Txopitea **artzapezak** pulpitutik espreski sermoia egin zuen kristauek galarazita zutela zentsurak 4R sailkatutako film hura ikustera joatea. Josu Landa

Artzapez -ordenak hartzeko ezinean geldituko baita, eta erraz etorriko da bere erresumaren jabe izatera. Patxi Ezkiaga

2 ***artzapez barruti*** *(corpusean ez dago; ETCn **32** agerraldi)*

Artzapeza elizbarruti batean **artzapez barrutia** administratzen eta zuzentzen duen apaiza da. **Artzapez barrutiak** azpian hainbat parrokia hartzen ditu. ETC-entziklopedia

Hilean behin, **artzapez-barrutiko** abadeok (eskualdea, nolabait) 'erretiroeguna' zeritzona izaten genuen. ETC-literatura, saiakera

Aipatu liburuan irakur daitekeenez, Errezil, Albiztur, Bidania eta Goiazeko **artzapez-barrutitik** salaketa bat bideratu zen 1855ean. ETC-literatura, saiakera

Lehendabizikoa Gipuzkoako **artzapez-barruti** nagusiarena, aisa pasatu zuena; geroxeago Iruñeko ohizko epaitegi eklesiastikoaren onarpena arazorik gabe erdietsi zuen. ETC-literatura, saiakera

Adierazi duenez, herenegun amaitu zuen Gipuzkoako hamabost **artzapez-barrutiekin** eta "apaiz guztiekin" egindako bilera erronda. ETC-prentsa

Gereñuk dioenez, XIII. mendean Trebiñuko **artzapez barrutian** aipatzen da Caycedo lekua, eta joan den mendean paraje hau betiko desagerraraztea nahi izan zuen zoriak. ETC-prentsa

Parrokia, **artzapez barruti** eta boluntarioen artean sareko lana sortu da, benetan ederra. ETC-prentsa

Arrasate-Bergarako **Artzapez Barrutiak** antolatuta, bakeaz eta adiskidetzeaz berba egingo dute Juan Mari Uriartek, Markel Olanok eta Floren Aoizek. ETC-prentsa

---

artzapezgo *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi) iz* artzapezpikugoa.

Leintz **artzapezgoak** gaurko Debagoiena eskualde osoa hartzen zuen barnean. ETC-prentsa

Lanek 100.000 euroko kostua izango dutela aurreikusten du bergara-Arrasateko **artzapezgoak** . ETC-prentsa

Gainera, Arantzazu **artzapezgoa** izan zen XIV. mendean, Bizkaiko lehenengoetarikoa, eta horrek ere ondo arrazoituko zukeen noranzkoaren zergatia. ETC-prentsa

1062 eta 1071 urteetan abizen bezala agertzen da. XIII. mendean Egilazeko **artzapezgoan** barne zegoen. ETC-entziklopedia

Egitura horiek Erdi Aroan ere iraun zuten, batez ere elizmugapeetan, horregatik gure udalerria garai batean Durangoko **artzapezgoaren** menpe izan zen. ETC-entziklopedia

---

artzapezpiku 1 *iz* eliz probintzia baten buru dagoen apezpikua.

Mugaz haraindiko eliz agintari, **artzapezpiku** eta gotzain guztiak Ordenan sartu direla; baita Frantziako erregea eta Ingalaterrako erregea ere. Askoren artean

Eliz jaietan, Corpus egunean esaterako, elizako jendea -**artzapezpiku** , gotzain, apaiz eta sakristau- aurrena joaten ziren, arropa sakratuek erakusten zuten dotoreziaz eta intsentsu lurrinak ezkutatzen zuen bonbaziaz. Felipe Juaristi

Nola, gero, Carranza **artzapezpikuaren** defendatzaile izan zen, Europa osoan sonatua izan zen auzian, eta nola hargatik gogotik sufritu behar izan zuen, halako tailuz, non etxean preso eduki baitzuten denbora batez, errege Filipe II.aren manuz. Joan Mari Irigoien

Artzapezpikuaren jauregiko murru baten gailurrean zetzala lo, hara non turutaren hotsak iratzarri zuen. Juan Garzia

Ez zela noski **artzapezpiku** batentzako moduko lekua, baina seguru egongo zela biharamuna arte, eta, pare bat egun pasatu behar balitu ere, bere etxean zegoela. Inazio Mujika Iraola

Joan nintzaion, nahiz ordu arte Toledoko **Artzapezpikua** ez nuen begitartez ere ezagutzen. Piarres Xarriton

Ingalaterrako Primatua Canterburyko **Artzapezpikua** da, bizirik dagoenean egoitza Lambetheko Jauregian izaten duen agure atsegina, eta hilda dagoenean, berriz, Westminster Abbeyn. Xabier Olarra

Erregearekin Bragako **artzapezpikua** zegoen, Joâo Peculiar, eta Portoko gotzaina, Pedro Pitôes, biak latinez adituak, zein baino zein areago. Jon Alonso

Eta mundu guziko gure Anaia agurgarri Patriarkei, Primatuei, **Artzapezpikuei** , Apezpikuei eta beste eskualdeetako buruzagiei, obedientzia sainduaren bertutez eta Jainkoaren jujamendua eta sekulako madarizionearen baldintzak gogoratuz, agintzen diegu beren hiri eta diozesietan direlarik gure mezu hauek aski argi argitara ditzaten eta gure erran hauek ere betearaz elizako gaztiguen eta zentsuren mehatxupean. Piarres Xarriton

Aitzineko lau arrazoi horiek erakusten dute ez dela zilegi gure delako **Artzapezpikuaren** auzia Espainian erabakitzea. Piarres Xarriton

Hau da nire fede sakona, nahiz eta aitortu behar dudan, saminez, ez Erromako Aita Santuak ez Canterburyko **Artzapezpiku** Dohatsuak (zeinak sakontasun berdinez ohoratzen ditudan) ez dutela onartuko fede hau zabal dadin. Xabier Olarra

Apezpiku-hirien mosaikoan Galia Togatako hiri-estatuen eta Galia Comatako kantonamenduen mugak bereiz ditzake historialariak, bitartean **artzapezpiku** -hiriek lau augustotar probintzien -Narbonensis, Aquitania, Lugdunensis eta Belgica-ren- azpibanaketa dioklezianikoaren eskema gorde zutelarik. Iñaki Mendiguren

2 ***artzapezpiku-barruti*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Euskal dantzari eta musikariak lehenengo aldiz arizan ziren joan den larunbatean Kalifornian, Los Angeleseko Katedralean, tokiko **artzapezpiku-barrutiak** urte guziz antolatzen duen 'Immigrazio Mezan'. ETC-prentsa

Harrezkero, bere elizbarrutiko bikario eta apaizen artean banatzen zituen Fabricek urtero-urtero Parmako **artzapezpiku-barrutiak** ematen zituen ehun eta hainbat mila liberak. ETC-literatura, saiakera

Artzapezpiku-barrutiko auzitegia (Bilboko eta Gasteizeko elizbarrutiak Burgoseko **artzapezpiku-barrutiaren** menpe daude; Donostiakoa, berriz, Iruñekoaren menpe). ETC-zientzia, zuzenbidea

Santa Kruz eta Santa Eulaliaren katedrala (katedral beharrean katalanez "Seo" edo "Seu" ere deitua) Bartzelona hiriko katedral gotikoa da, baita Bartzelonako **artzapezpiku-barrutiaren** egoitza ere. ETC-entziklopedia

Berak gidatzen zuen **artzapezpiku-barrutian** egondako sexu-gehiegikeria eskandalu batengatik kargua utzi behar izan zuen. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artzapezpiku bat (6); **artzapezpiku izan** (3); **artzapezpiku ospetsuak** (3); **gure artzapezpiku** (5); **gure jaun artzapezpiku** (4); **iruñeko artzapezpiku** (3); **toledoko artzapezpiku** (8); **valentziako artzapezpiku** (4)

artzapezpikua bera (3); **artzapezpikua da** (3); **gure artzapezpikua** (4); **sevillako artzapezpikua** (3); **toledoko artzapezpikua** (6); **valladolideko artzapezpikua** (6)

gure artzapezpikuaren (3)

artzapezpikuen kontseiluko zuzendariak (3); **erromako artzapezpikuen kontseiluko** (5)

---

artzapezpikugo *(corpusean **artxapezpikugo** soilik) iz* artzapezpikuaren lanbidea eta kargua. ik **artzapezpikutza**.

Alabaina, munduan gaindi dabila etenik gabe 1984 etik hunak, ordutik deitu baitzuen bere Marseillako **artxapezpikugotik** Joanes Paulo IIak Cor Unum karitate obra eta Zuzena eta Bakea deituaren Eliz'kontseiluen kudeatzeko. Herria

---

artzapezpikutegi *(orobat **Artxapezpikutegi**) iz* artzapezpikuaren egoitza.

Beltran Etxauzko apezpikuak jasan-ahala traba ukaiten du Baionako hiri-buruzagitzatik, honek egiten dizkion laido, mehatxu eta gaiztakeriekin, hainbestetaraino non behar baitu eliza-gizonak zenbait aldiz ere Baionatik urrundu, azkenean Tours-eko **artxapezpikutegia** eskaintzen diote 1618an, bizimolde hobe baten menturan. Michel Oronoz

Apez batek erraiten dit **artzapezpikutegian** ardietsiko dudala zigilua. Piarres Aintziart

Atzeman dut **Artzapezpikutegiaren** bulegoa eta, eskailera maila batzuk kurrinka ari zitzaizkidala, alimaleko gela batetara heltzen naiz. Piarres Aintziart

Atzeman dut **Artzapezpikutegiaren** bulegoa eta, eskailera maila batzuk kurrinka ari zitzaizkidala, alimaleko gela batetara heltzen naiz. Piarres Aintziart

Horrela biziki susmagarri izatearen ondorioz eta horrengatik merezitu hobenaren ordainetan Aita Sainduak kondenatzen zuen bere **artzapezpikutegitik** urrun egotera bost urteentzat eta, arte horretan, preso izateko ordez, Orbietoko hirian, Erromatik hirurogeita hamar miliatan, domingotar fraideen komentuan hetsirik bizitzera, eta, handik hara, Aita Sainduak nahiko zuen bezala egitera. Piarres Xarriton

---

artzapezpikutza *(corpusean **artxapezpikutza** soilik)* artzapezpikugoa. *iz*

Iruñeko **Artxapezpikutza** da jabea. Herria

---

artzar *(corpusean ez dago; ETCn **37** agerraldi) iz* ardi zaharra.

Tontorrean, berriz, jaitsaldi hura amaitu eta berehala, bigarren **artzar** bat jaiki zen, eta beste bostengandik hastandu. ETC-literatura, saiakera

"Ardiak **artzarra** edaterat uzten!". Ardiak bildotsa nola ostikatuko zuen irudikatzen du, eta nardagarria iduritzen zaio ama hark ttarrotua duen semeari modu horretan amore ematea. ETC-literatura, saiakera

Larrainen: axuriak, urteaz beheiti, talde bat aparte; bildotsak, urte bat edo bi, antzuen taldean, udan zehar marroek estaliko zituzten; ardiak: bihortzak (lehentxak), lauhortzak, seihortzak (zerratuak), bost urtetik hara errasatuak, bizi-akaberan **artzarrak**. ETC-literatura, saiakera

---

artzatu, artza(tu), artzatzen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* du *ad* bahetu.

"Gaitzak bere horretan jarraitzen duela ikusi dugu, eta ebakuntzaren ondoren egin zaion **artzatzea** eta jarraipena ez dira egokiak izan. ETC-prentsa

---

artze ik **aritze**.

---

artziprestazgo *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi) iz* artziprestearen lanbidea eta kargua.

Horretarako, auzitegi alderdietako hiriburuak -ordenu publiko eta judizialez gain, alderdi politikoek ere ordezkaritza izaten zutelako eta, ez ahantzi, Gotzaindegiaren hurrengo agintea **artziprestazgoetan** zegoela- ikertu beharra legoke. ETC-prentsa

Bestalde, 1527-1561 urteetan, Gipuzkoako **Artziprestazgo** Nagusiko idazkaritza Alkizan egon omen zen. ETC-prentsa

96 apaiz horien artean daude, orobat, Gipuzkoako elizetako 42 erretore eta bost artzipreste -parrokia hainbaten bilgunea da **artziprestazgoa**-. ETC-prentsa

Debagoieneko **artziprestazgoko** Osasun Pastoral taldeak otoitzaldia egingo du ekainaren 1ean, astelehena, Bergarako San Martin elizan (Sierbetan, Santa Marina parrokia ondoan), 16: 30ean. ETC-prentsa

Gillen Tolosa, Errenteriako bikarioa eta Hondarribiko **Artziprestazgoko** artzipreste ofiziala. ETC-entziklopedia

---

artzipreste *(corpusean ez dago; ETCn **58** agerraldi) iz* apezpikuak bere barrutiko eskualde baten buru izendatzen duen apaiza; apaizari ematen zaion ohorezko titulua. ik **artzapez**.

Boccacioren Dekameron da adibiderik ezagunena, eta ildo berean agertu ziren Canterbury Tales edo Juan Ruiz Hitako **artziprestearen** Libro de Buen Amor delakoa. ETC-literatura, saiakera

Aita Burruano, **artziprestea**, Bergamon ikuskizunean izandako baten emazteak emandako informazioa jasota, erasoka hasi zitzaion alkateari, erretorearen harridurarako. ETC-literatura, saiakera

Alberto Onaindiak gertakari berataz, Monzonen lekukotasuna berretsirik, eransten du Gipuzkoako **artziprestetako** batek izan ezik, beste guztiek duda egiten zutela dokumentuaren benetakotasunaz. ETC-literatura, saiakera

Jakina, hainbat noble ere apaiz edo fraide sartzen zen, baina normalki Eliza barruan karrera egiteko asmoz, alegia, gutxien-gutxienik kalonje, parroko, **artzipreste** edo horrelako karguren bat hartzeko, eta noblezia handiaren kasuan apezpiku edo monasterio bateko aita abade. ETC-literatura, saiakera

Haien artean, hamalau **artzipresteetatik** 11k bat egin dute testuarekin. ETC-prentsa

Denbora behar du elizbarrutia ezagutzeko, **artzipresteak**, eta beste. ETC-prentsa

Oso aste bizia izan da, hainbeste gauza astebetean! Datorren asterako deia egin diet **artzipresteei**, haiekin egoteko. ETC-prentsa

Asko dira hemen amorio eta maitasun istorioak, bai eta ezkontzaz kanpoko umeak ere (eta ez dira gutxi apaizen seme-alabak; behin **artzipreste** batena ere aipatzen da). ETC-prentsa

Bai **Artzipreste** Kontseilua, bai Kontseilu Presbiterala, eta Elizbarrutiko Pastoral Kontseilua organo informatzaile huts izatera mugatu dira askotan. ETC-prentsa

Inaugurazio egunean gora-beheraren batzuk izan ziren herriko **artziprestearekin**, baina azkenean dena ongi atera zen eta meza eta bazkaria giro onean ospatu ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zigoitiko **artzipreste** Jose Maria Urratxa buru zela, batzordeak Casto Zabala arkitektoari agindu zion lana. ETC-entziklopedia

Horren adibide dira Talaverako **artziprestearen** "El Corvacho" liburua. ETC-entziklopedia

Ondoren, Arrasateko (1878) eta, azkenik, Tolosako **artzipreste** izendatu zuten 1880. urtean. ETC-entziklopedia

Baionan bikario nagusi eta Pauen **artzipreste**, 1857an Aireko apezpiku izendatu zuten. ETC-entziklopedia

---

artzobispo *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* artzapezpikua.

Alantxen aginduta eukon Monseiñor Byrne-k, euren **artzobispoak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

arxitekta ik **arkitektu**.

arzain ik **artzain**.

---

arzaletasun *iz* arren zale denaren nolakotasuna.

Hasieran obraren barnean aurkitutako parekotasunek txundituko dute, irakurlearen eta idazlearen arteko gauzatxo, ñabardura konpartituek, insomnioa dela, beldurra dela, emezaletasuna dela, edo **arzaletasuna** dela. Lander Garro

---

arzobispo *iz* artzapezpikua.

Erresumako bi magistratu zuzenenek gizon bat akusatuko balute, esanez honek Mufty-rekin batera konspiratu duela Estatu Kontseilu osoa zirkunzidatzeko, eta parlamentua, eta diru-kontu auzitegia, eta **arzobispoa**, eta Sorbona osoa, magistratu horiek alferrik zin egingo lukete Muftyren gutunak ikusi dituztela, inork ez lieke sinetsiko, zoratu egin direla pentsatuko lukete denek. Juan Martin Elexpuru

---

as *iz* erromatarren moneta zaharra, denarioaren hamarrena balio zuena.

Orduan zilarraren eta kobrearen arteko proportzioa 960/1 zen; izan ere, erromatar denarioak hamar **as** edo kobrezko hamar libera balio zituelarik, kobrezko ehun eta hogei ontza balio zituen Errepublikak ezin zituen bere zorrak kitatu; **as**-ak kobrezko bi ontza pisatzen zuen; eta denarioak hamar **as** balio zuenez, kobrezko hogei ontza balio zuen. Iñaki Iñurrieta

Denarioaren laurdena bi **as** eta erdirekin egiten zelako, sestertzioa deitu zioten. Santiago Iruretagoiena

Metal horretako denarioak egin zituzten, hamar **as** balio zutenak [...] edo kobrezko hamar libera. Iñaki Iñurrieta

Ilagin batek **as** laurden bat emana zion ordain-sari. Juan Garzia

---

asa *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *interj* norbait mugiarazteko edo presatzeko erabiltzen den hitza.

- **Asa** ! ETC-literatura, saiakera

---

asaba **1** *iz pl* arbasoak, aitona-amonez gorako aurrekoak.

Nolanahi ere, familiako kide haren balioa ikusirik, bidezkoa iruditu zitzaion sakonean Araujo **asaben** sintesia zen enpresaren loraldian partaide egitea Carlos, izan ere haiei zor baitzien ilobak lizeoan bost urte alferkerian eta beste sei hilabete Lisboan paseatzen ibili izana. Bego Montorio

Haren **asabak** esklabo-salerosleak izanak ziratekeen Mediterraneo aldeko herriren batean. Josu Zabaleta

Nola ikasi zutela uste duzu, gure aurreko **asaba** haiek? Pello Zabala

Oso mingarria egiten zaigu, nola ez, gure **asabei** gai honetan egitera ausartu ziren legezko hilketak aurpegiratzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gure **asabek** beldur zioten armiarmari: Bere tokitik ateratzen bazen, edo berri txarren bat, edo euria. Pello Zabala

Baliteke umeek aititaren antza edukitzea, baita birraititaren itxura ekartzea ere, gurasoek euren gorputzean askotariko lehenki ugari nahasturik gordetzen baitute sarritan, lehen jatorritik hara aitatik aitara datorrena; hortik Venusek itxura ezberdineko figurak moldatzen ditu eta **asaben** hazpegiak eta ahotsa eta ileak berritzen. Xabier Amuriza

Beti bezala, "gure **asaben** ildotik" jarraituz, kolpatzen gaituzten eritasunetatik libratzekotan... uda amaitutakoan Erniora behar horrek besterik iradokitzen du; niri behintzat bai. Txillardegi

2 (izenondoekin)

Ni ez zigortze harekin, inplizituki, txalo jotzen zidaten nire **asaba** kopetilunok. Xabier Mendiguren Elizegi

Seguru zegoen **asaba** juduak zeudela bere genealogian, ondo gogoan baitzuen aitona mastekatzeko belar zatitxoak saltzen, Tristagarri zitzaidan arren, ez nik ez inork ezagutu ez genituen **asaba** zaharrek bezalatsu, nik uste, behin eta berriz errepikatzen nuen itsasora begira: "hire aldia joana duk... hire aldia joana duk". Bego Montorio

Idazle apalak gehienak, baina beren lanaren izerdiaz **asaba** zaharren baratze koxkor hau ongarritu eta aberastu dutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere mundu osoa **asaba** zaharren fede horri zion leialtasunean finkatzen zen, eta azkenik dena galdua da. Joseba Zulaika

Gure **asaba** zaharrek enpeinu biziz begiratzen zioten eguraldiari: saiatzen ahaleginak botatakoak ziren baserrietan, lanarekin egoki asmatuko bazuten. Pello Zabala

-Eta gure **asaba** zaharrek hementxe eraiki zuten Azpil... Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asaba zaharren baratza** (8); **asaba zaharren baratze** (3); **gure asaba haiek** (4); **gure asaba zaharrek** (5); **gure aurreko asaba** (3)

---

asago *adlag* urrun.

-Oh! Gizon argia eta inteligentzia handikoa zan ha, edonori **asagotik** igarten eutsana. Xabier Amuriza

---

asagotu, asago(tu), asagotzen *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* da/du *ad* urrundu.

Biltzarrotan PCP gizamultzoen alderdi iraultzaile bat izatetik gero eta gehiago **asagotu** zen. ETC-entziklopedia

Bestalde, badira bere hizkuntza estandar araupeko hizkuntzatik espazioz zein denboraz horren **asagotuta** dauden hizkerak, non hiztunek ez baitiete jatorrizko arauei jarraitzen, esate baterako, Brasilgo Hegoaldeko Rio Grandeko alemaniarrek hitz egiten duten aldaeran gertatzen den lez. ETC-entziklopedia

---

asaldadura *iz* asaldatzea.

-Zer egin gogo dute haiekin? -galdegin zion berriz, bozari doinu leunaren ematera lehiatuz, bere **asaldadura** ez agertzeko gisan. Elena Touyarou

1996ean bake hitzarmena izenpetu bazen ere, jendearen **asaldaduraren** arrazoinak beti hor dira: [...]. Herria

Bere hitzaldian barrena, gainera, Mayor Orejak proiektu finkoen gabezia horrek **"asaldadura** politikoa" eragiten duela baieztatu zuen. Berria - Euskal Herria

---

asaldagaitz *izond* asaldatzen zaila, ia ezin asaldatuzkoa.

Hark eta haren emazte Esterrek, Korfu-n veneziar familia batean jaiotako andre amultsu eta **asaldagaitz** hark, azidoak sukaldean edukitzea munduko gauzarik naturalena balitz bezala onartua zuten guk beren etxean laboratorioa antolatzea. Juan Garzia

Ez zion harridura-izpirik sorrarazi, inondik inora ere, Rose-k hain kartsuki erantzun izanak bera bezalako berrogeita bederatzi urteko gizon ezkondu eta **asaldagaitzari**. Mirentxu Larrañaga

asaldagarri 1 *izond* asaldatzen duena.

Bakarrik gelditu nintzen gure etxe isilean, zoruko zurajearen karraska hots **asaldagarriak** lagun bakar nituelarik. Alberto Ladron Arana

Eserlekua gehiago hurbiltzen zuen, Florenti irribarre **asaldagarri** batez so egiten zion. Karlos Zabala

Agian noizbait ere argitu ahal izango zituen bere zalantza **asaldagarri** haiek. Patxi Zubizarreta

Kezka **asaldagarriez** gainezka, Ed Thatcher bakar-bakarrik sentitu zen, gelako atea bere atzean itxi zenean. Lopez de Arana

Aarraila, zaintzaile zein hormak oro alferrikakoak zirelako irudipen **asaldagarria** izan zuen. Jose Morales

Haren hatz luze eta zuri-zuriak, azazkal gorriminez hornituak, pieza beltzen gainean emeki-emeki bildu eta, nagitasun **asaldagarri** batez, beste lauki baten gainera askatzen zituztenak. Alberto Ladron Arana

Baina eguraldi txarrak eragina zuen Egor Timofeievitxengan ere, eta gudu latzei buruzko amets **asaldagarriak** izaten zituen. Jose Morales

Hurrengo eguna gertaera bitxi eta **asaldagarri** batekin hasi zen. Oskar Arana

Hasierako marrazki **asaldagarrienen** artean -Chrisen ustez- etxe-eraisteen eta lurrikaren eszenak zeuden. Xabier Olarra

Asaldagarria izaten da maiz Poeren kontakizunen irakurketa. Koro Navarro

Irri-eragingarria zen niretzat, baina baita **asaldagarria** ere: ikuspegirik zoragarrienaren aurrean egon, planetako ikusmirarik bikainenaren aurrean, eta zer, eta han automobilak jartzea bururatu beharra, alajaina!!! Xabier Olarra

Baina azken bolada hartan sentipen nahiko **asaldagarria** nuen, alegia, gerrako mamu haiek itzultzen ari zirela nire arima torturatzera. Alberto Ladron Arana

Bada zortzi orrialdeotan halako desideratum aire bat, halako giro light **asaldagarria**. Iñigo Aranbarri

Batzuetan Diane ekartzen zien eta harro-harro erakusten, eta une haiek zeharo **asaldagarriak** izaten ziren Geraldentzat. Mirentxu Larrañaga

Hein handi batean, nahasgarri zitzaion ikusmena, eta, batzuetan, erabat **asaldagarri**. Xabier Olarra

Zertan nago, bada, ni, zertan, aita baitidate hil, eta ama zikindu, ene buru eta odolaren **asaldagarri** latz, eta lo zorroan? Juan Garzia

Nire aurkikuntza bitxi honek badu, hala ere, alderdi **asaldagarririk**. Iban Zaldua

Undinak bezain erakargarri dira, pozoia bezain hilgarri, harrigarriro bitxi, **asaldagarri**, beldurgarri. Josu Zabaleta

---

asaldakaitz *izond* asaldatzen zaila, ia ezin asaldatuzkoa.

Bere burutik oinetarainoko begiratuagatik ere neskak gorde zuen segurtasun lasai **asaldakaitz** hark, irribarreak eta burua makurtzeko moduak, topaketa ezatsegin eta begiratu harrapari guztietatik bere adeitasunak eta arroztasun eskurakoiak defendituko zutela errugabetasunez jakiteak, dardarka jarri zituen mutilaren hatzak. Koro Navarro

Haren borondatea bizia zen eta tematia, eta haren lasaitasuna **asaldakaitza**, baita gizon bat etsia hartzeko zorian edo odolak irakin beharrean jarriko zuten egoeretan ere. Karlos Zabala

Elkarrekin igarotako sei egunean, Nikolasek, Mikel Strogoffek eta Nadiak nor berean segitu zuten, patxada **asaldakaitzean** babestua lehenengoa, urduri beste biak, eta zain, lagun zintzo hura noiz berengandik aldenduko. Karlos Zabala

---

asaldaketa *iz* asaldatzea.

Egun iluna eta beltza izan zen hura, atsekabe- eta larrialdi-eguna, ezbehar eta **asaldaketa** handiko eguna lurrean. Elizen arteko biblia

Orduan boteredunen **asaldaketa** eta ikus-entzuleen ezustekoa piztu zuten. Berria - Kultura

Bertan, ETA "estualdian" dagoela esan eta "1997. urtean Miguel Angel Blancoren bahiketa eta hilketarekin sortarazi zuen **asaldaketa**" eragin nahi zuela aipatzen da gertaera horren ondoren Lizarrako Akordioa sinatzea baimendu zuen agintari abertzaleen arteko elkarrizketak abiatu zirela dio txostenak. Berria - Mundua

---

asaldamen *iz* asaldatzea, asaldamendua.

Ideietan zituen hara-hona horiek, plan bat eta galga bat ez izate horrek, nahasmenik handienera zeramaten Andres, burmuinaren gehiegizko **asaldamen** etengabe eta alferreko batera. Josu Zabaleta

---

asaldamendu *iz* asaldatzea.

Beste **asaldamendu** bat izan zen hirian, eta zati-zati egingo zukeen jendetzak indar armatuak azaldu ez balira. Josu Zabaleta

Naturaz gaindiko munduak bere indar guztia zor dien kirioen eztanda horietako bat, garunaren **asaldamendu** horietako bat zen hura, inondik ere. Josu Zabaleta

Urduritasunezko, haserrezko, misteriozko **asaldamendu** batezko orroa. Josu Zabaleta

Ondoan geratu zitzaigun, pentsakor, inolako **asaldamendurik** agertu gabe, gure solasaz interesatua iduri. Matías Múgica

Pobre zein aberats, denek loterian esku hartze berdina izatea lortzeko irrika hain bidezkoak haserre biziko **asaldamendu** bat piztu zuen, urteen joanean oraindik ezabatzeke dirauena. Juan Garzia

---

asaldarazi, asaldaraz(i), asaldarazten du *ad* asaldatzera behartu.

Amorruak ez zaitzala **asaldaraz**, bestela, ez duzu aurkituko askatuko zaituen erospen-saririk. Elizen arteko biblia

Ageriko arriskuek eragin dezakete zirrara, **asaldarazi** dezakete, larritasuna sor dezakete! Josu Zabaleta

Bara zaitez lasaitasunaren premia handitan den bihotz bat **asaldarazi** nahi izatetik; ez nazazu obliga zu ezagutu izanaz damutzera. Jon Muñoz

Ez ezazu zeure burua horrela **asaldarazi**, mesedez. Mirentxu Larrañaga

Edonor **asaldarazi** eta kikilarazten dute halako isiluneek. Mirentxu Larrañaga

Naturaren kontrako ezinezkeria horiek ainitz jende **asaldarazi** dute eta lehen lehenik Apezpikuen Biltzarra Espainian. Herria

Enganatze horrek jende asko **asaldarazi** du, batzuen eta bertzen arteko urrakoa oraino gehiago handiaraziz. Herria

Geldi geratu nintzen une batez, baina gero nire mihiak berea bilatu zuen, eta bere liztuaren zaporeak blaitu zidan ahosabaia, nire sabelpea **asaldaraziz**. Juan Martin Elexpuru

Gizontxo hura pozez lehertu beharrean zen, gozatzera zihoan bozkarioaren aiduru; hain gogobetea iritzi nion, non hura **asaldarazteko** gogoa izan bainuen; bai alabaina **asaldarazi** ere. Jon Muñoz

Zer duk hik jendea horrela **asaldarazteko**? Elizen arteko biblia

---

asaldari *izond/iz* asaldatzen duena.

Ikuspuntu horrek, idazkera matxino eta **asaldariak**, literaturgintzan ekar ziezaiokeen sari gorena ekarri dio: 2004ko Nobel Saria. Berria - Kultura

-Agitadore edo nahaslea -gogoratzen ari nintzen-, finantzaria, herriko batzordeko partaidea, **asaldaria**, armadaren izen onaren zikintzailea, milizianoa, salataria, medikua frontean, propaganda zabaltzaile zorrotza eta zinikoa. Edorta Jimenez

Erregearen egunean, buruzagiek ardoaren berotasunez burua galtzen dute; erregeak berak eskua luzatzen die **asaldariei**. Elizen arteko biblia

---

asaldatu, asalda(tu), asaldatzen **1** da *ad* norbaiten barne baretasuna bat-batean hautsia gertatu. ik **durduzatu**; **larritu**, **izutu**.

Asaldatu nintzen, eta izerdi hotz batek izoztu ninduen oinetatik bururaino. Josu Zabaleta

Are gehiago harritu eta **asaldatu** ziren ordea hiru bikoteak afalorduan bildu zirenean; baina nahasmendua mukurutu zitzaien, Prévanek, ororen erdian berriz agerturik, hiru desleial haiei ankerki desenkusak erakutsi zizkienean. Jon Muñoz

Héraclius **asaldatu** egin zen, ordaindu zituen eskatzen zituzten hamar zentimoak eta sartu egin zen. Josu Zabaleta

Ustekabekoarekin harritu eta **asaldatu** egin nintzen hatsarrean, baina, segidan, malkoak xukaturik, amaganat hurbildu, eta erran nion: [...]. Joan Mari Irigoien

Ordutik ez zitzaion inoiz hainbeste **asaldatu** oilategia. Berria - Mundua

Desmasia ikaragarri horiek ikustearekin auzoko erresumak izitu eta **asaldatu** ziren. Xipri Arbelbide

Zuzengabekeri ororen kontra **asaldatzen** direnen borroka. Herria

Ruche jauna **asaldatu** egin zen, izututa: [...]. Jon Muñoz

Hitz horiek esan baizik ez zuen egin, zaldia **asaldatu** zen; Françoisena oldarrean abiatu zen. Josu Zabaleta

Geure burua urkabean, korapilo haietarik batetik dilindan, orduan, bada, larritzen, izutzen eta **asaldatzen** gara, zuri zena ere beltz dakusagu. Joan Mari Irigoien

Bihotzak taupadaka egiten dit, begia pizten zait, ikusten ditudanean, odola zainetan **asaldatzen** zait, arima altxatzen zait, eta eskuak dardaraz hasten zaizkit haiek ukitzeko desiraz. Josu Zabaleta

Bazen bere baitako erdibideak hausten zekien Mitxelena bat ere: dena jakin usteko ezjakin arrunt pedanteen kontra irakiteraino **asaldatzen** zena, izan zitezen agure zahar kamustuak edo berdin gazte txoro argituegiak. Iñaki Segurola

Jendetzaren artetik burrunba bat sortu zen eta jendedia, ezinegonak harturik, **asaldatzen** hasi zen. Fernando Rey

-Ez da judua; gezurra da hori, jauna! -barrua **asaldatu** egin zitzaidan-. Edorta Jimenez

-Zer kontu eta zer kontuondo! -**asaldatu** zen Fructuoso-. Inazio Mujika Iraola

-Mirenek ez zuen horrelakorik egingo! -**asaldatu** zitzaion Alkorta. Migel Angel Mintegi

Asaldatu egin zen Leireren hatsa matrailean sentitzean. Unai Iturriaga

Alexandro erregea, aldi hartan, Zilizian zen, eskualde hartako bizilagunak **asaldatu** egin baitzitzaizkion. Elizen arteko biblia

-Zer mediku eta zer deabru! -**Asaldatu** nintzaion bat-batean- whisky edo gin-kas ttilika batekin hobeki nindukeen! Itxaro Borda

"Oraindik hor al da?" **asaldatu** zen Mikaela. Pablo Sastre

Gizona, erantzunagatik, eta erantzun hark emakume gatibu baten ahotan erakusten zuen ausardiagatik, harri eta lur gelditu bazen ere, ez zen **asaldatu**. Felipe Juaristi

Bazterrak **asaldatu** dira. Pello Zabala

PPren hautagaia **"asaldatuta** " agertu zen "ETA-Batasunak" tokia izango duelako Gasteizen. Berria - Harian

Guztiz espero ezin zitekeena zen hura bezalako emakume segurua bat-batean aurpegia gorriz tindatzeraino **asaldatzea**. Jon Alonso

2 du *ad* norbaiten barne baretasuna bat-batean hautsi.

Aztoramen berriago batek **asaldatu** du Yolo, dudarik gabe, eta nola aztoratu ere! Pako Aristi

Telefono deiek **asaldatu** egiten zuten. Bernardo Atxaga

Gorputza ezinegonera daramate, eta arima ere **asaldatzen** dute atseginezko eta oinazezko grinekin, pozezko eta tristurazkoekin, beldurrezko eta desirazkoekin, urduritasunezko eta arduratiekin. Joan Mari Lekuona

Detroitetik etorritako albisteak langile eta sindikatuak **asaldatu** zituen atzo. Berria - Ekonomia

Tanketek bakarrik **asaldatzen** ninduten. Anjel Lertxundi

Behin ahuntz baten ezkilak **asaldatu** gintuen, baina segidan berriro isiltasuna mendafin-usainezko muino haien gainean, isiltasuna, bihotz-taupadak eta egarria lagun, eta haizea besterik ez belaze ihartuetan. Joxe Austin Arrieta

Erne egonagatik segundo batzuen buruan ailegatu zaion Joxeren ahotsak **asaldatu** egin du, ohartu baita uste baino askoz ere hurbilago daukala, agian zentimetro batzuetara. Pello Lizarralde

Bertan idatzi zuen, atsegin bozkarioz; berehala, ordea, inorena zelako susmoak **asaldatu** zuen. Juan Garzia

Galdutako haur bati buruzko berri bat eman zuten telebistan, eta horrek **asaldatu** eta aztoratu egin zuen Bennett. Xabier Olarra

Adierazpen hark **asaldatu** eta hunkitu egin ninduen. Ander Irizar

Harroputzek herria **asaldatzen** dute, zuhurrek haserrea baretzen. Elizen arteko biblia

Gau eta egun hari so, ea "seme" hitza ezpainetaratzen zitzaion, baina esku hutsik ordu arte, ezerk ez baitzuen **asaldatzen** Marfa Strogoffen sorgortasuna. Karlos Zabala

Ez du gaixotasun baten beldurrak **asaldatzen** jendea. Josu Zabaleta

Beste gezur batek **asaldatzen** nau bereziki: entzuteak edozein ama dela zoriontsu umea zoriontsu ikuste hutsarekin. Arantxa Iturbe

Besteen arrakastak bost minutuz kitzikatu eta **asaldatzen** nau. Berria - Kultura

Gero ea zoriontsua zen galdetu nion, eta erantzunak **asaldatu** egin ninduen: zertarako galdetzen duzu? Badakizu ezetz. Lander Garro

Hitz hauek **asaldatu** egin zituzten jendea eta agintariak. Elizen arteko biblia

Sentipen bitxi batek **asaldatzen** ninduen. Alberto Ladron Arana

Atezuan egon arren, txirrinak **asaldatu** egin ninduen. Joxean Agirre

Jakingura urduri batek, haserrea eta beldurra ere bazituenak, guztiz **asaldaturik** nindukan gau eta egun. Josu Zabaleta

Neuk zergatik jakin gabe, barruak astindu eta **asaldatu** egin zizkidan bisita hark. Juan Luis Zabala

Komunikabideen bidez gizartea **"asaldatzea** eta izutzea" leporatu diote Volkswageni. Berria - Ekonomia

Beharbada horrexek **asaldatu** du Espainiako Gobernua. Berria - Euskal Herria

Azkenaldian ezerk ez du **asaldatu** urte luzez presidente ohiaren egoitza izan zena. Berria - Harian

Adiskide sentikorra, maitale amoltsua, hire oinazearen oroitzapena zergatik zetorkidan sentitzen ari naizen atsegina **asaldatzera**? Jon Muñoz

Ezerk ez zuen **asaldatzen**. Koro Navarro

Goizeko zortzi eta erdiak ez dira, Europako zoko honetan bederen, inoren etxea telefono kolpeka **asaldatzeko** tenorea. Aingeru Epaltza

3 (era burutua izenondo gisa)

Istorio lotsagarria eta eskandalagarria zen, gure aita **asaldatu** hark inondik ere ulertu nahi ez zuena. Makilaz eta labanaz armaturiko asesinatze-asmoko talde **asaldatu** eta jendetsu bat. Pello Lizarralde

Giltza sartu nuen; oldartu nintzen aurrera, eskuan kandela bat hartuta, bultzatu nuen ostiko batez nire gelako ate erdi itxia, eta begiratu **asaldatu** bat bota nuen tximinia aldera. Josu Zabaleta

Afifi andereak, orduan, irri **asaldatu** batekin: [...]. Patxi Zubizarreta

Sakoneko higuin batek hartua zidan barrena, eta amorru **asaldatu** bat, nire esku nuenean piztia hura ez urkatu izanaren damua ari zitzaidan jabetzen. Josu Zabaleta

Ikara **asaldatu** batez ezkutatzen zituen bere esku dardaratiak jakaren azpian. Josu Zabaleta

Gutako nork ez du, amets **asaldatu** , urduri, hasperenez bete horietan, eduki, estutu, berotu halako sentsazio zorroztasun aparteko batez, gogoa beterik zion emakumea? Gero, ezer entzun ez balu bezala egin dit, durundio **asaldatu** batean: [...]. Josu Zabaleta

Dardara bat izan zen etxe osoan, Pitagorasek aharrausi handi bat egin zuen, piztia **asaldatuak** tupustean esnatu ziren eta zapalartaka hasi ziren zeinek bere hizkuntzan metenpsikosiaren profeta handiaren berpizte handia ospatu nahi izan balu bezala. Josu Zabaleta

Nire pentsamenduak ere Wagnerren musikaren baitan mugitzen dituk, haren itsaso **asaldatu**, ilun, amaiezinaren baitan. Alberto Ladron Arana

Bulebar **asaldatu**, gas-argiz izartu, zurrumurrutsuari begira. Josu Zabaleta

Irudimen **asaldatuak** bere gisa erabili nau, nonbait, non eta egiaz sonanbulu ez banaiz behintzat. Josu Zabaleta

4 (adizlagunekin)

Izugarri **asaldatu** eta eskandalizatu zen. Askoren artean

Seko **asaldatu** zen. Harkaitz Cano

Eleketa arizan ginen sobera **asaldatu** gabe, hitz minkorrik gabe. Marzel Etxehandi

Hori gertatu den hirian, jendea arrunt **asaldatu** da. Herria

UMP alderdikoak segituan **asaldatu** ziren. Berria - Ekonomia

Ateraldi horrek ditu osoki **asaldatu**, izigarriko blasfemioa zela hori. Herria

Han egokitu baitzitzaion fusil-tiroka italiar Kontsulatua jende-aldra basakiro **asaldatu** baten aurka defendatu beharra. Juan Garzia

Sanz pittin bat **asaldatu** zen horretaz jabetzean, harro baitzegoen bere trebeziaz: ez zuen ulertzen nola gerta zekiokeen hura. Iban Zaldua

Odola **asaldatu** zait osotara. Txillardegi

Nik neuk ere akabera mota bera izango ote dudan kezkak **asaldatu** nau bortizki. Txillardegi

Karia horretara egin didazun liskar gisako horrek biziki **asaldatu** nau. Jon Muñoz

Isabel Sanjoseren sinadura aurkitu berria nuen hainbertze **asaldatu** ninduen albistearen azpian. Aingeru Epaltza

Ganberaburua hainbeste **asaldatu** zen bera ikusi zuenean, ezen ezin izan baitzuen taxuzko esaldirik josi. Jose Morales

Arras **asaldatu** nauten bi gauza ikusi nituen atzo. Josu Zabaleta

Aldian behin egun batzuetarako nire etxera etortzen zen, landara, eta gau hartan bereziki **asaldaturik** zegoela iruditzen zitzaidan. Josu Zabaleta

Miarritzen erabat **asaldaturik** jardun dute astean zehar eta horrek behartu du Baionak eta liderrak jokatuko duten partida erakargarriari arreta gutxiago eskaintzea. Berria - Kirola

Parte txarreko gertaera horrek hainbesteraino **asaldatu** omen zuen, non ez omen zen gehiago azaldu Amiensen, eta haren atarramendua misterioa da oraindik ere. Xabier Olarra

Baina ez lanaren egikerak, ez begitartearen edertasun hilezkorrak, ezin izan ninduten hain bat-batean eta hain barruraino **asaldatu**. Koro Navarro

Jende guztia haserrez gainezka **asaldatu** zelarik, hiru mila gizon armatu zituen Lisimakok eta jendearen kontrako erasoa hasi. Elizen arteko biblia

Gabetze horrek giza sentipenetan barrenekoenak indar bereziz **asaldatzen** ditu. Xabier Olarra

Esan zuen "Lilyk behintzat arrazoi ematen dit" eta bere ondora ekarri zuen hura, urduri samar, **asaldatu** samar. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita asaldatu (5); **asaldatu antzean** (3); **asaldatu bat** (4); **asaldatu baten** (3); **asaldatu da** (5); **asaldatu dira** (9); **asaldatu ditu** (4); **asaldatu du** (4); **asaldatu edo** (3); **asaldatu egin da** (3); **asaldatu egin du** (3); **asaldatu egin ninduen** (4); **asaldatu egin nintzen** (4); **asaldatu egin zen** (21); **asaldatu egin ziren** (8); **asaldatu egin zitzaidan** (3); **asaldatu egin zuen** (4); **asaldatu egingo** (5); **asaldatu egiten da** (4); **asaldatu egiten zen** (5); **asaldatu ninduen** (8); **asaldatu zen** (18); **asaldatu ziren** (7); **asaldatu zitzaion** (4); **asaldatu zuten** (5); **batek asaldatu zuen** (4); **batere asaldatu gabe** (3); **bazterrak asaldatu** (3); **erabat asaldatu** (4); **ere asaldatu** (4); **ez asaldatu** (7); **ez zen asaldatu** (6); **gehiago asaldatu nintzen** (3); **guztiz asaldatu** (3); **hainbeste asaldatu** (3); **hainbesteraino asaldatu** (4); **hark asaldatu** (3); **horrek asaldatu egin** (3); **jendea asaldatu** (7)

arrunt asaldatua (8); **asaldatua zen** (3)

arras asaldatuak (3); **arrunt asaldatuak** (3); **irudimen asaldatuak** (3)

asaldatuen artean (3)

asaldaturik bizi (3); **asaldaturik utzi** (3); **asaldaturik zegoela** (4); **asaldaturik zegoen** (7); **erabat asaldaturik** (3); **guztiz asaldaturik** (5); **zeharo asaldaturik** (5)

asaldatuta agertu zen (3); **asaldatuta dago** (4); **asaldatuta esnatu** (3); **asaldatuta zegoen** (3)

asaldatzen ari (4); **asaldatzen dira** (3); **asaldatzen ditu** (3); **asaldatzen du** (4); **asaldatzen dute** (5); **asaldatzen ez** (5); **asaldatzen hasi zen** (4); **asaldatzen nau** (6); **asaldatzen zen** (4); **asaldatzen ziren** (3); **asaldatzen zuen** (5); **asaldatzen zuten** (3); **barrena asaldatzen** (4); **batek asaldatzen** (3); **gehiago asaldatzen** (7); **herria asaldatzen** (3); **kontra asaldatzen** (4)

---

asaldatzaile *iz* norbait edo zerbait asaldatzen duen pertsona.

Disidenteek, **asaldatzaileek**, iraultzaileek, anarkoek eta bihurriek ordaintzen dute garestien beren ausardia, baina haiek aldatzen dute mundua, haiek zalantzan jartzen "betiko egiak", haiek urratzen bide berriak. Luis Elberdin

---

asaldatze *iz* norbaiten barne baretasuna bat-batean haustea.

Halakoak aurrean izateak eragiten didan **asaldatze** eta ezinegona alde batera utzita, badakit badela iritsi ezinezkoa zaidan gizaki mota bat munduan. Ander Irizar

Nahiko zukeen sinetsi hori guzia gehiegizko **asaldatzea** zela, hartzen baina sekulan gauzatzen ez ziren erabaki ugarietarik bat. Elena Touyarou

Ingalaterra eta Holandarekiko gerla, Frantziako lau eskualdetan eta bereziki Vendée inguruan gertatzen ziren **asaldatzeak**, edota "Girondins" partidukoek "Montagnards" taldekoen kontra Parisen burutzen zuten borroka bortitza. Elena Touyarou

1984an, sikhek Indira Gandhi hil zutenean, India osoan sikhen kontra **asaldatze** beldurgarria izan zen. Gotzon Garate

---

asaldatzear *adlag* asaldatzeko zorian.

-Norena duzue haur hori? - **asaldatzear** zegoen Maite-. Itxaro Borda

---

asaldazio *iz* asaldua.

Hala, egoeraren erremediorik ezaz jabetu nintzenarekin batera, baretuz joan zitzaizkidan lehengo **asaldazioak**. Pedro Alberdi

---

asaldu *iz* asaldura.

Oroitzen ditut haren erranak, eta aditu uste ditut; hasperenka egoten naiz; eta gero sentitzen dut su bat, **asaldu** bat. Jon Muñoz

Ni orain jasaten ari naizen **asaldu** hilgarria. Jon Muñoz

Horren perpaus goresgarria entzunik, halako dardarak hartu nau, non ez nezakeen zutik iraun; kausitu dut besaulki bat, eta han eseri naiz, arras ahalke gorritan eta **asaldu** bizian. Jon Muñoz

Gure lanbidea gudu etengabe horretan iharduki eta garaile irtetea da: askoz menderagaitzagoa da, zure borondatera makurgaitzagoa, berniz birika-mamitu bat lehoi bat **asaldu** biziko oldarrean baino. Juan Garzia

Ezin al diozue solasaren zeharbidez atera zergatik agertzen duen nahasmen hori, hain zakar kraskatuz orain arteko patxada **asaldu** eta arrisku biziko zoraldi larriz? Juan Garzia

Maiorraren hitzak ez zituen eteten sugandilen zaratatxo motelak baino, haiek teilatutik erori ahala, **asaldu**-ikarak beren hanketako bentosak laxarazirik. Juan Garzia

Hutsune, absentzia eta **asaldu** uneekin batean. Joxan Elosegi

Maiorraren hitzak ez zituen eteten sugandilen zaratatxo motelak baino, haiek teilatutik erori ahala, **asaldu** -ikarak beren hanketako bentosak laxarazirik. Juan Garzia

Giltzurrunetako gaitza zuen, eta aurpegia, hankak eta besoak urez bete eta handitu egiten zitzaizkion barne **asaldu** bortitzen bat izaten zuen bakoitzean. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asaldu bizian (4)

nire asaldua (3)

---

asaldura 1 *iz* asaldatzea, asaldaturik dagoenaren egoera; nahasmendua. ik**asaldu**.

Asaldatu egin zen Jonathan, eta **asaldurak** orkatileko oinazea piztu zion. Jon Muñoz

Alde guztietan entzuten ditut zurrumurruak, esanez aldaketa hurbilak datozela, eragozpenak, nahasmena, **asaldura**, istiluak eta arazoak. Urtzi Urrutikoetxea

Harridura eta **asaldura**, bereziki demoen ganik. Herria

Ez dago sumina, bekaizkeria, egonezina eta **asaldura**, heriotzaren beldurra, amorrua eta konponezina baino. Elizen arteko biblia

Jainkoak eta bere aingeruek, beren eraginaldietan, zinezko alaitasuna eta poz espirituala ematen dute, etsaiak eragiten duen tristura eta **asaldura** oro uxatuz. Patxi Altuna

Haren ondotik, aztoramendua, **asaldura** eta giro nahasia hedatu zen jauregian. Joan Mari Irigoien

Hura urduritasuna, eta hura **asaldura**, lehen egun haietan partikularzki. Joan Mari Irigoien

Raimundo Silvaren gorputzeko atalen batean artegatasunezko seinale batek jotzen du, **asaldura** izango litzateke hitz aproposa, orain hitz horri lagundu behar dion adjektibo egokia aukeratu behar dugu, sexuala, adibidez, baina ez dugu aukeratuko. Jon Alonso

Erruki, andrea, jabal ezazu, otoi, nire arimaren **asaldura**. Jon Muñoz

Ez da sentitzen izumena deitzen den arimaren **asaldura** hori, baldin eta beldurrarekin batera iragan mendeetako sineskeriazko ikara hartako zertxobait ez bada. Josu Zabaleta

Hamidak, kopeta ilundurik eta pazientziaz gabeturik, **asaldura** agerian uzten zuen ahotsez. Patxi Zubizarreta

Eta ez bitez gizonezko nahiz emakumezkoen amabitxi izan, hori dela-eta zer esana edo **asaldura** sor ez dadin. Askoren artean

Nire estura eta **asaldura** guztien lasaigarri. Alberto Ladron Arana

Horixe egin behar nuen, gauza praktikoez pentsatu eta **asaldurak** saihesten saiatu. Alberto Ladron Arana

Fusilatuak zeuden hartarik lekututa eztitu egin zen bere **asaldura**. Koldo Izagirre

Guk lagundu egin dezakegu hor eragiten den **asaldura** larriagotzen denean; baina lagundu baino ez, arazoa soziala delako. Berria - Euskal Herria

Besteren **asalduraren** aurrean, emakumeak ezin izaten zion isiltasunari luzaroan eutsi. Patxi Zubizarreta

Apur bat ikaratu naiz haien aurrean, eta konturatu naiz hasierako bozkarioaren ostean, aurkikuntzak eragindako **asalduraren** ostean, nire inguruko gizonak ere isilik gelditu direla. Urtzi Urrutikoetxea

Euskaldunak gara -hitzok banan-banan ahoskatu zituen, arestiko **asalduraren** arrastorik gabe. Alberto Ladron Arana

Moussa piraguadunaren aurpegian ez zen keinu berezirik nabarmendu kontaketaren amaieran, ez **asaldurarik**, ez penarik ez harridurarik. Berria - Kultura

Erdian, ondo bilduta, ordura arte gatibu baten eskutan inoiz ikusi gabeko mutur bat, amaiera bat, gela osoa **asalduraz**, zurrumurruz eta xuxurlaz bete zuen gauza bat. Urtzi Urrutikoetxea

Sorrarazi zenuen **asaldurazko** une hura bazterreratzera edo iraungitzera ez nahiz batere entseiatu, iduri du eginahal guztiak egin dituzula nire asaldua are gehitzeko. Jon Muñoz

Zenbat egunetan aitzinatuko ote zait heriotza, bizitzan bizi izan ditudan -eta bizi izan nauten- **asalduren** eta larritasunen karietarat? Joan Mari Irigoien

Zer norabide leramake, bada, bizitzak, **asalduren** lemarik gabe? Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Pentsamendu hark, arindu beharrean, are **asaldura** handiagoa ekarri zidan. Alberto Ladron Arana

"Oh", esan zuen Ramsay andreak **asaldura** txiki batekin. Anton Garikano

Desoreka geldoa izan zen, gogaitze nagi bat, gerora neurriz gaineko **asaldura** bizia bihurtu zitzaiona. Angarako kanpamentuan argiak atzera eta aurrera mugitzen ziren sarritan, hango **asaldura** biziaren seinale. Karlos Zabala

Plan horri ekiten zion Florentek gau guztietan, drama jokaleku hori antolatzeak kirioetako **asaldura** larria arinduko balio bezala. Karlos Zabala

Vivaldiren eskala alaiek kontrapuntu latza egiten zioten emakumetxoaren **asaldura** larriari. Alberto Ladron Arana

Nire proiektua bertan behera uzteko haren setaren atzean, **asaldura** sakon bat antzematen nuen, izuarekin nahastutako lilurapena. Joseba Urteaga

Hilabete pasatxoren buruan, haurtzaroko tokiak bilatzera eraman zuten **asaldura** sentimentalez sendatuta zegoelakoan itzultzea erabaki zuen. Bego Montorio

Indargintzaren inguruan bezala da abortoarekin, drogarekin, eta **asaldura** soziala probokatzen duten beste arazo askorekin. Joxe Azurmendi

Barbaroa mehatxatzen duen **asaldura** psikologikoari hormak eusten dion bitartean, berak dauzkan muga horien barruan ezin du sortu ondorio erabat etsigarria. Iñaki Mendiguren

Aizuna ezin izan litekeen xalotasunezko halako **asaldura** hunkigarri bat. Jon Muñoz

Ordurako ongitxo sumatzen zuen - **asaldura** eta kezka doi batekin- ezen iraganarekiko lotura betiko porrokatua zegoela. Patxi Zubizarreta

Amore eman zion bere suntsitzaileari indar zapaltzaileari (**asaldura** ezin adierazizkoaz anaiak gauean esan zidanez). Koro Navarro

Bulkada menderaezinak sentitzen zituen bere baitan, bere barneko **asalduraren** adierazgarri. Lopez de Arana

Salhaketaren abokatuak atzo prentsaurreko batean nabarmendu zuenez, lekualdaketak sekulako **asaldura** sortu du presoen alde lan egiten duen elkartean eta presoaren familian. Berria - Euskal Herria

Prestuak, aldiz, zuhurra den heinean, ez du senti barneko **asaldurarik** baina, beti, bere buruaren, Jainkoaren eta gauzen betiereko ezinbestekotasun haren jakinean izanez, izatetik ez da nehoiz gelditzen eta egiazko barne gozoaren jabe da beti. Piarres Xarriton

Hainbat arrazoirengatik desiragarria dirudi, negozio-zikloaren esplikazioan, kanpoko **asalduren** eraginari ahal den garrantzirik txikiena ematea. Iñaki Mendiguren

Hain zen handia Raimundo Silvaren kontzentrazioa ezen, ustegabeko **asaldurarekin**, eskuak mugimendu zakarra egin baitzuen, paperean zirriborro bat eraginez. Jon Alonso

Ezin, ordea, burutik kendu bat-bateko irudikapen hura, nahigabean, ustekabe hutsean, lo-etenaldiko **asaldura** gisa sortua. Joxe Austin Arrieta

3 (hitz elkartuetan)

Jada ez zuen aurpegian **asaldura** -zantzurik ageri. Irene Aldasoro

Agureak, **asaldura** imintzio bat eginez, erresuminez esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Diskurtsoaren puntu honetan protesta-oihuak eta **asaldura** -garrasiak nahiko orokortuta zeuden, jendearen ezin egona nabarmena zen. Jon Alonso

Wood-tarrak jasanak ziren beren nahaste eta **asaldura** kuota azken urteetan, baina bazirudien Tomek bizitzaren aurreko jarrera zentzuzko, gogoetazko eta doi bat harridurazkoarekin eraman zuela bere gurasoen banantzearen hondamendia. Oskar Arana

· Garai batzuetan, hizkuntzek aldaketa gehiago izan ohi dituzte, beste garai batzuetan baino, eta aldaketa askotako garai horiek, kanpo historian izandako gizarte **asaldurako** garaiekin lotzeko saioak egin dira. Isabel Arrigain

Beren grina **asaldura** hori, prozedura erromantikoetan ohikoa dena, umorezko ikuspegi batez dago tratatua, hutsean oinarritua. Josu Zabaleta

Hirurak batera agertzea ez da halabeharrezkoa, ikertzaile horien ustez; garapen-**asaldura** funtsezko bakar baten adierazpen dira guztiak. Xabier Olarra

Laster konturatu nintzen larritasun sakon bat, nerbio **asaldura** gehiegizko bat gainditzeko eginahal ahul eta hutsaletatik sortua zela koherentzia falta hura. Koro Navarro

Barne-**asaldurarik** gabe bizi ziren, biharko egunari kezkarik gabe begiratuz eta gaueko aterpea lasai itxaronez. Askoren artean

Ikuspen bortitz hark eragindako barne-**asaldura** pixka bat baretu zitzaionean egunkarietako hitzak irakurtzen hasi zen, nahasian. Juan Luis Zabala

4 ***antsietate asaldura*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Buru asaldura batek ere ez du etiologia argitzen (adibidez, depresio batez edo **antsietate asaldura** batez). ETC-entziklopedia

5 ***identitate disoziatiboaren asaldura*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Identitate disoziatiboaren asaldura . ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asaldura handia (3); **bere asaldura** (6); **halako asaldura** (3); **nire asaldura** (3)

ez asaldurarik (3)

---

asaltatu, asalta(tu), asaltatzen du *ad* pertsona bati eraso egin; nonbait indarrez sartu lapurtzeko edo zerbaitez jabetzeko asmoz.

Tren berria mukuru eginda zetorren; jendetzak amorru batean **asaltatu** zuen, ilunbetan borrokan. Josu Zabaleta

Etsaiak hiltzen ditu, haurrak eta damak salbatzen ditu, itsasontziak edo diligentziak **asaltatzen** ditu, kanoiak, puñalak, ezpatak, trabukoak... Xabier Mendiguren Elizegi

---

asalto **1** *iz* pertsona bati eraso egitea; lekuren batean sartzea lapurtzeko edo zerbaitez jabetzeko asmoz.

Asaltoa jotzen denean, nahitaez behar dira gizonak aurreko puntan. Josu Zabaleta

Egunero gertatzen dira lapurretak, hilketak, **asaltoak** ; poliziak eta gauzainak ez dihoazkie urruti lapurrei; sabela bete nahi dute denek, eta soldatak jaso ezin direnez, kontrabandoan jardutera behartuta dago jendea. Josu Zabaleta

Ez zitzaion arraroa iruditu, esku trebatu batek armak partitzeari ekin zionean, banaketan esku-bonba batzuk eta **asaltozko** metrailadora bat egokitzea. Berria - Kultura

Orain astebete ez dela iritsi zen etxera, **asaltoko** goardia patruila batek jarraitzen ziola. Ramon Etxezarreta

Guadalajaran, han izan zituan Nafar-Erriozar Miliziak, hantxe **asaltoko** guardiak, borrokan hilda erori zuan Agiriano kapitainaren agindupean, hantxe Irungo karabineroak, ume gorri batzuk, mobilizatu berri, eta hantxe izan zuen Andres Garcia Lacalle. Edorta Jimenez

Atxilotu eta **asaltoko** tropei eman behar nien. Ramon Etxezarreta

2 boxeo borrokaldi bateko zatietako bakoitza.

Finalera iristen denak hamar **asalto** izango ditu jokatuta. Josu Landa

Baina Lutxo Vargasi koskabiloak ukitzen hasten bazaio, ez du **asalto** bat iraungo. Jon Alonso

Hiru kolpe on ematea lortu zuen bigarren **asaltoan** . Josu Landa

Cassius Clay zazpigarren **asaltoan** KO teknikoz gailendu baitzitzaion. Berria - Kirola

Hamargarren **asaltoan** Cassius Clay errekuperatu egin dela ematen du. Joseba Sarrionandia

Kinketako batekin **asaltoen** hasiera edo bukaera adierazten zuen; kinketako larriekin, boxeolarien azpi-kolpeak. Bernardo Atxaga

Asaltoen bitarteko astian managerrak toailaz bizkarra, bularra eta izterrak igurtzi zizkion eta hamahirugarren **asaltora** Cassius Clay erdidantzan irten zen berriro, eta kolpe ugari eman zuen, harik eta ostera ere soken kontra errefuxiatu behar izan zuen arte. Joseba Sarrionandia

3 irud/hed

Oraingoan, hala ere -krausismoari **asaltoan** erasotzeko abagunea profitatuz- "ohore nazionala" dago jokoan. Joxe Azurmendi

Azkarregi husten naiz; eiakulazio goiztiarra daukat, eta ez dut ezta **asalto** bat ere irauten. Luis Elberdin

---

asana *iz* yogan, gorputz postura edota mugimendua.

Ondoren, Eguzkiari Agurra izeneko mugimenduak eta gero hasiberrientzako **asana** edo gorputz-jarrera batzuk egiten nituen logelan, ekialdera begira, neukan leku estua ahal nuen bezala baliatuz, modu xelebrean batzuetan, tarteka ohearen ertza joz. Juan Kruz Igerabide

---

asanblada *(ETCn **5.917** agerraldi)* **1** *iz* biltzarra, batzarra. ik **asanblea**.

ASANBLADA deritzo guztion onerako zer egin behar den eta zer ez deliberatzen duen giza taldeari. *Convention Nationale* izeneko **Asanblada** berriak erregetzaren behin betiko suntsitzea erabaki zuen eta Errepublika proklamatu. Esteban Antxustegi

1962ko udaberrian egin zuen ETAk bere lehen **asanblada** Belokeko monasterioan. Joseba Zulaika

Horretan sakontzeko, hau da, Euskal nazioa askatzeko bide berriak argitzen joateko plazaratu zituen Krutwigek *La Cuestion Vasca* eta *Nacionalismo revolucionario* (1965) liburuak, non ETAk burutuko V. **asanbladan** berak aurkeztu zituen txostenak argitaratu zituen. Askoren artean

Greba deialdia zegoen eskualde osoan eta gu ere fabrikan **asanblada** egitekoak ginen. Jon Maia

" **Asanblada** , entzerrona, manifa, sentada edo kazerolada horietako batean enteratuko zuan", pentsatu duk, "beti ikasleekin ibiltzen duk-eta, auskalo zein ipurdiren atzetik". Jokin Muñoz

Marta, Manu eta Pintxo agertu dira klasearen erdian eta **asanblada** konbokatu dute hamaiketarako, beti bezala. Pako Aristi

Asanbladan bildu dira, nola ez, eta usadio duten bezala zoragarrizko ardailan hasi dira elkarren artean. Koldo Izagirre

Ez dira denak azaldu **asanbladara** , ezta gutxiagorik ere. Pako Aristi

Lehenik eskolak, etorkin talde bat antolatzea lortu huelako poza, gero **asanbladak** , katedraleko gose greba, manifestazio andana. Javi Cillero

Hasieran, **asanblada** orokorrak egiten genituen, errefuxiatuen prestakuntzari begira. Rafa Egiguren

Asanbladak klandestino izatetik erdi-klandestino izatera pasatu ziren, kalera atera nahi ez zutenek piketeen aurrean amore eman behar izaten zuten eta jendea kalera ateratzeko, tailerretik tailerrera zihoazen langile kateak egiten genituen. Jon Maia

Honelatsu izan zela amets hura: Gasteizko Fakultatean batzarra, alias **asanblada** ; zu hizketan ari, plastikozko zigarroa eskuan, eta hor atera naiz ni jende-artetik oihuz: "Mitxelena jauna, atzerakoi alena" (jatorrizko hizkuntzan, **asanbladetakoan** : "Señor Michelena, es usted un reaccionario"). Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asanblada egin (3); **asanblada egingo dute** (4); **asanblada orokorrak** (4); **emakumeen asanblada** (3); **gizon edo asanblada** (6); **nahiz asanblada izan** (5)

asanbladak deituta (3); **asanbladak gogor** (3); **aurkako asanbladak antolatutako** (3); **bizkaiko asanbladak** (3); **du asanbladak** (5); **gaztetxeen aldeko asanbladak** (3); **iruñerriko gazte asanbladak** (5); **langabeen asanbladak** (3); **trenaren aurkako asanbladak** (4)

asanbladako kide batek (4); **gazte asanbladako kide** (4); **gazte asanbladako kideak** (4); **gazte asanbladako kideek** (4)

ahtren aurkako asanbladakoek (3); **gazte asanbladakoek** (7)

asanbladara deitu (3)

gazte asanbladaren (3)

gazte asanbladek (3)

---

asanblea *(ETCn **2.782** agerraldi)* **1** *iz* biltzarra, batzarra. ik **asanblada**.

Euskal Legebiltzarkideen **Asanbleak** lan batzorde berezia osatu zuen, Estatutuaren proiek-tua hitzartzeko. Berria - Euskal Herria

Espainiako Gorteetarako aurreneko hauteskundeetan aukeratutako euskal parlamentarien **asanbleak** landu, hitzartu eta onartu zuen Gernikako Estatutuaren lege proiektua, baina zailena Espainiako Gorteek onartzea izango zela bazekiten. Berria - Euskal Herria

Asanblea egin zenean denek, Castrok izan ezik, aldeko botoa eman zuten, eta Urdaibai ez zen bilera hartan izan. Berria - Kirola

2000ko otsailaren 11n, Irlanda Iparralderako **Asanblea** bertan behera utzi zuten, IRAren eta desarme batzordearen arteko akordioa lortu arte. Berria - Harian

Desarmea gauzatu dela egiaztatzean sortuko den testuinguruan, berriz, alderdi eta erakunde politiko guztiek, bai Irlandako **Asanbleak** eta Gobernuak, eta bai Irlanda iparraldeko nahiz hegoaldeko erakundeek, batera lan egingo duten itxaropena agertu zuten Londresek eta Dublinek. Berria - Harian

Gure iritziz, nazioarteko federazio bakoitzaren, euren **asanblearen** esku dago azken erabakia. Berria - Kirola

Berez aurredeialdia zen, gero uztailaren 6an azoka hasi baino egun bat lehenago egin behar genuen **asanblean** baieztatu behar genuen erabakia. Berria - Kultura

Bilgune Feminista Europako Emakumeen **Asanblean** izango da larunbatean. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Asanblea Nagusiak aldarrikapena onartzea da helburu nagusia, eta ez da erraza izango lortzea, Erresuma batua eta haren bi kolonia ohi Australia eta Kanada aurka daudelako. Berria - Gaiak

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako **Asanbleak** protesta ekitaldia egin zuen atzo arratsaldean Kursaal jauregiaren aurrean, Euskal Hiria jardunaldiaren kontra. Berria - Euskal Herria

3 ***Asanblea Nazional***

Lehen kapitalistatzat jotzen zituen giza eskubideak eta jabetza pribatuaren bermea onartuko ditu aurreneko aldiz Konstituzioan Txinako Herri **Asanblea Nazionalak**. Berria - Mundua

Baina **Asanblea Nazionalak** kopuru hori gehitzea erabaki zuen. Berria - Mundua

1873aren amaieran, ordea, **Asanblea Nazionalak** adierazi zuen onura publikokoa zela eliza bat eraikitzea Montmartreko muinoan. Monika Etxebarria

Baita Parisko **Asanblea Nazionalak** ere, eta honek Espainiara bueltan bidaltzeko eskaera egiten zuen. Jokin Urain

Halako batean, Neuillyko palazioan abandonatu zuen Jeanne, Frantziako **Asanblea Nazionalaren** egoitzaren saihetseko karrikan zegoen Bar des Amis ostatuan zerbitzari jartzeko, Gaxtoni esker. Itxaro Borda

Radio Nazionala, **Asanblea Nazionala** ... eraso zidan. Iñigo Aranbarri

Izan ere, aste honetan bertan Frantziako **Asanblea Nazionalak** familiari buruzko txostena onartu du. Berria - Harian

Asteazkenean **Asanblea Nazionalak** onartu eta gero, atzo gauza bera egin zuen Senatuak. Berria - Ekonomia

1790. urteko uztailaren 14an -Bastillako borrokaren urteurrenean- Federazioaren festa antolatu zenean, Cloots jauna atzerritarrentzako agiriak egin eta banatzen aritu zen, eta txartelak zioen "mundu osoko hiriburuan" eginak zeudela eta "Frantziako **Asanblea** Nazionaleko Gizateriaren Hizlariak" sinatzen zituen -Jean-Baptiste Cloots zen, noski, Frantziako **Asanblea Nazionaleko** Gizateriaren Hizlaria, hala izendatu baitzuen bere burua Cloots jaunak. J.M. Olaizola "Txiliku"

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asanblea bat (3); **asanblea bertan behera** (3); **asanblea egin** (4); **asanblea honek** (3); **asanblea konstituziogilea** (7); **asanblea konstituziogilerako** (3); **asanblea nagusiak** (5); **asanblea nazionala** (6); **asanblea nazionalak** (12); **asanblea nazionalean** (15); **asanblea parlamentarioak** (3); **asanblea parlamentarioko** (4); **asanblea sortu** (3); **behin behineko asanblea** (6); **erakundeko asanblea** (3); **europako kontseiluko asanblea** (4); **euskal legebiltzarkideen asanblea** (3); **frantziako asanblea nazionaleko** (4); **herri asanblea nazionaleko** (3); **lurralde asanblea** (6); **txinako herri asanblea** (3); **zuten asanblea** (3)

ahtren aurkako asanbleak (3); **euskal legebiltzarkideen asanbleak** (3); **frantziako asanbleak** (3); **gazte asanbleak** (4); **korsikako asanbleak** (4); **lurralde asanbleak** (4)

asanbleako kide (5); **euskal legebiltzarkideen asanbleako** (3); **korsikako asanbleako** (4); **korsikako lurralde asanbleako** (7); **lurralde asanbleako diputatu** (3); **lurralde asanbleako presidente** (6)

---

asanbleario *izond* asanblearen bidez gauzatzen dena, biltzarraren bidezkoa dena.

Hura zen gure eredu **asanbleario** eta antisistema. Urtzi Urrutikoetxea

Mugimendu **asanbleario** eta autogestionario guztien oinarrian dago PARIsKO Komuna, eta eragin handia izan zuen Marx, Lenin eta Stalinengan ere. Berria - Kultura

Eztabaida taldeak izango dira, AHTren aurkako ekintzak nola hedatu eztabaidatzeko: informazioa, ekintza zuzena eta mugimendu **asanblearioa** bultzatzeko bideak izango dira eztabaidagai. Berria - Euskal Herria

Borroka tresna eraginkorra da gizartea eraldatzeko, autogestioaz egiten dugu lan eta **asanblearioa** da. Berria - Harian

Kontseilu politikoa UPNko 220 lagunek osatzen dute eta erabakiak **asanblearioak** dira. Berria - Euskal Herria

Egitasmoak zuzenki nahiz zeharka kalte egindako pertsonak, talde ekologistak zein kultura arlokoak, ondare fisiko, biologiko eta historikoaren defendatzaileak eta hainbat jatorri eta ideologiatako herritarrek osatzen dute plataforma, zeinak modu **asanblearioan** funtzionatzen duen. Berria - Mundua

---

asanbleista *iz* asanblea bateko kidea den pertsona.

Telleria presindentetarako hautagai bakarra izan da, eta 80 **asanbleistek** ez zuten bozkatu beharrik izan, hautagai bakarra zegoelako. Berria - Kirola

---

asapalan *adlag* galopan, lauhazka.

Ordu luzetan **asapalan** ibili ziren baina, Golen zaldiak bi gizonen pisuari eutsi behar bazion ere, ez zuten harrapatu. Joanes Urkixo

---

asarre ik **haserre**.

---

asarretu ik **haserretu**.

---

asasinagarri *iz adkor* asasinatua izatea merezi duena.

Ttipik panpina handi bat zirudiela, kasurako, telebista programa jasangaitzetan agertzen diren sabeliztun edo bentrilokuo **asasinagarriek** baliatzen ohi dituzten horietarik. Aingeru Epaltza

---

asasinato *iz* hilketa, erailketa.

Demagun **asasinato** bat izan dela: gaizki dago (A. Joxe Azurmendi

Hilketa hori egiaz **asasinato** bat ote zen, ala beharbada hilketa legitimo bat zen (tiranizidioa, etc.), ez da erabakitzen ekintzako elementu osagarri objektiboetan, hari balio sistema baten aplikazioan baino. Joxe Azurmendi

asasinatu, asasina(tu), asasinatzen **1** du *ad* hilketa edo erailketa bat egin.

Guk **asasinatu** dugu, zuek eta nik. Joxe Azurmendi

Hamahiru urte eskaini zizkien hain neke heterogeneoi, baina arrotz baten eskuak **asasinatu** zuen eta nobela zentzugabea zen eta inork ez zuen labirintoa aurkitu. ez zegoen guztiz seguru bere aita zein laban motarekin **asasinatu** zuen, ezta haren kirtenaren koloreaz ere. Juan Garzia

Ustez **asasinatu** nuen emakumea hartua nuen besoetan. Matías Múgica

Bere burua errege izendatu zuen bere hirurogeita hamar erlijiokideak **asasinatu** ondoren, Jothan izan ezik, hura Tebas-ko dorrea setiatzen ari zela hil baitzen. Lopez de Arana

Bere "justifikazio-idatzi"-tik eta prozesu-agirietatik dakigu Eckhartek bere Kontsolamenduaren liburua 1308an **asasinatua** zuten Albrecht Habsburgekoaren alaba zen Hungariako Agnes erreginarentzat konposatu zuela. Joan Mari Lekuona

Norbait **asasinatzen** ari balira bezala edo. Juan Garzia

2 (era burutua izenondo gisa)

Lurperatzeko, ez zuen beste inolako arrazoirik zera baino: barreneraino sinetsirik zegoela, alegia, gauero bere perrailarekin etortzen zela kanoizain **asasinatua** urre-sotoa hustu eta ondasunak itsasora botatzera. Juan Garzia

---

asasinatzaile *iz* hilketa edo erailketa bat egin duen pertsona. ik **asasino**.

Asasinatzaile ezezagun baten eskuetan hil behar zuen kondenatuak, iradoki zuen Nolan-ek, inguramendu berariaz dramatiko batean, herriaren irudimenean josirik gera zedin, hala matxinada bizkorragotzeko. Juan Garzia

Hala, haren ipuinetatik irakurrienean, Kalekantoi arrosakoloreko gizona delakoan, **asasinatzaile** bat da narradorea. Juan Garzia

---

asasinatze *iz* hilketa edo erailketa bat egitea.

Baldin eta zuhurra bazara, jakina, zeren, **asasinatze** gehiegi eraginez gero, kristal likidoko ikurraren barruko marratxoak ugaldu eta maila arruntekoa izanda ere puntu gehiago balio baituzu. Iban Zaldua

Txikitan hil zitzaion aita, eta haren heriotzaz geroztik eta gure kontakizunaren ardatza osatzen duen **asasinatzea** baino hemezortzi hilabete lehenago arte, elkarrekin bizi izan ziren ama-alabak. Koro Navarro

Ezin izan diote, halere, **asasinatzea** leporatu biktima boluntario aurkeztu zelako. Berria - Mundua

Zer da zuek bizimodua deitzen duzuen hori, denboraren **asasinatze** oharkabea ez bada? Hasier Etxeberria

---

asasino **1** *iz* norbait hiltzen duen pertsona.

Asasinoa edo heroia izan, zertan aldatuko zuen horrek Ritarenganako neukan iritzia eta, batez ere, harenganako sentipena? Hasier Etxeberria

Egiaz, hil-hurren dagoen biktima belaunikatua zirudien, esku odolduak luzatu eta **asasinoari** mesedez gehiago sufriarazi gabe behingoz hiltzeko eskatzen ziona. Ramon Saizarbitoria

Bertsoak zazpi puntuko neurrian kantatu behar zituela esanez errematatu zuen **asasinoak** bertsolaria. Berria - Kultura

Gu gara bere **asasinoak**! Joxe Azurmendi

Baina halaber zara zu erailketaz hobendun; eta **asasinoek** -esan zuen Nikolas Trot-ek- beren partea izango dute bigarren heriotza den suzko eta sufrezko aintziran. Juan Garzia

Guk ez diegu ideia batzuei aurka egiten, **asasino** gupidagabe batzuei baizik. Xabier Montoia

Ez nuen filmetan atso bat akabatu nahian agertu ohi diren **asasino** patetiko horiek bezalakoa izan nahi; beren lana burutu ezinean, aizkorarekin edo aiztoarekin jo eta jo, elastiko hutsean, elastikotan azaltzen baitira beti, izerditan blai, ikusleari azkenerako deitoragarriago egiten zaizkionak, biziari tematí eusten dion biktima bera baino. Ramon Saizarbitoria

Ustezko **asasinoa**, kontra egin gabe, guztiz damuturik, belaunikatu, eta oihuka hasi zen, barkatzeko eta barkatzeko. Joan Mari Irigoien

-Kolpe zorrik jo gabe, **asasino** koadrila hori! Karlos Linazasoro

2 *izond* norbait hiltzen duena.

Pailazo **asasinoaren** tragikomedia. Berria - Kultura

Urde **asasino** horrek ez du beste ametsik: Paris, Paris eta Paris. Anjel Lertxundi

Armak gustura erakutsi zizkiguten nerabe **asasinoek**, gorrotoaren harrokeriaz, eta zain geunden hurrengo astakeria noiz edo nola egingo zuten jakiteko. Karlos Linazasoro

3 irud/hed

Eta eskuak eta mihia moztuko lizkioketen guztiak etorri zaizkit tupustean burura, hizkuntzaren arimaren **asasino** horiek guztiak. Iñigo Aranbarri

" esaten nuen, salto txiki edo handi bat, Morganek aurpegi **asasinoaz** begiratu eta segi aurrera. Joxean Sagaztizabal

---

asaskaldi *iz* atseden hartzen den aldia.

Sergioren irtenaldi eta **asaskaldi** haiek ontzat ematen zituen arren, halabeharrez. Joan Mari Irigoien

Idatzi bezain laster, **asaskaldiaren** ondoko lasaitasunak hartu ninduen. Joan Mari Irigoien

---

asaskatu, asaska(tu), asaskazen da/du *ad* baretu, atseden hartu.

Kolerak hartu zuen orduan, esan ezin ahalean, eta gutxienez bere tristezia **asaskatu** ahal izan zuen hartara. Patxi Zubizarreta

Goitik, hortaz, agintea galtzen; eta behekoen aurka **asaskatu** behar larderia galtzeak eraginiko amorrua. Markos Zapiain

Tinkotasunez egin zuen aurrera, gizonarekin topatuko zen ziurtasunarekin eta gozo **asaskatuko** zen ustearekin: gizonaren ezpainetatik irribarre inozo eta gailen hura ezabatuko zuelakoan zegoen. Patxi Zubizarreta

Arnasa falta zitzaidala sentitu nuen, baina barrena **asaskatu** beharra nuen. Alberto Ladron Arana

Batzuk norbaiti dioten gorrotoa adierazteko, bizpahiru eskutitz nazkagarri idatzi eta **asaskaturik** gelditzen dira. Gotzon Garate

Abiadurarik handienean zeharka-meharka, harat eta honat ibiltzen da, **asaskatu** arte. Gotzon Garate

Nik, ordea, pentsatu dut Tomek atsegin handia hartu duela fiskal lanarekin eta **asaskatzeko** balio izan diola. Patxi Zubizarreta

Aita mozkorrak semea jipoituz **asaskatzen** du bere amorrua. Markos Zapiain

Neskak begitartea iluna zuen, ahoa itxirik, begiak arranpalo, eta airean zituen kirioak **asaskatzeko** behinik behin, aitzakia bat izatea desio izan zuen. Patxi Zubizarreta

---

asaskatzaile *izond* asaskatzen, baretzen duena.

Garai hartan gure bihurrikeriaren garaipentzat jotzen genuen orro **asaskatzaile** haietako bakoitza; denbora igarota konturatzen naiz ikasleok kate motzetik lotuta edukitzeko beste trikimailu bat besterik ez zela, trikimailu bizkorra gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

---

asbesto *iz* amiantoa.

Amiantoa edo **asbestoa** mineral naturalez eratutako zuntz bat da. Berria - Ekonomia

Urbanizazioko etxeen itxura berekoa da eskola: eraikuntza apal bat, adreilua agerian, leihoak altzairuzkoak eta teilatua **asbestozkoa**, hautsez betetako lur zati karratu batean eraikia eta txarrantxaz hesitua. Oskar Arana

---

asbestosi *iz* amiantoa arnasteak birikeran eta bronkioetan eragiten duen eritasuna.

Amiantoa denbora askoan arnasteak **asbestosia**, mesotelioma eta biriketako minbizia eragiten ditu, besteak beste. Berria - Ekonomia

Urtetik urtera behargin gehiago hiltzen dira **asbestosiak** edo biriketako minbiziak jota. Berria - Ekonomia

Erretiratu eta 4-5 urtera biriketako odoljarioa izan zuenean, medikuek **asbestosia** diagnostikatu zioten 1989 edo 1990 urte inguruan. Berria - Ekonomia

Epaiaren arabera, "agerikoa zen enpresaren jarduerak beiragintza **asbestosia** eragiteko arriskua zuela". Berria - Ekonomia

Gasteizko Gizarte Auzitegi batek berretsi egin du egitatea, "Macias jaunaren heriotzaren eragileak lanean ari zela hartutako **asbestosiaren** kalteak" izan zirela. Berria - Ekonomia

---

ase, asetzen *(ETCn **17.718** agerraldi)* **1** du/da *ad* gosea edo egarria berdindu arte jan edo edan, edo jaten edo edaten eman. ik **asebete**.

Ase ditzala begiak bere Romeoren ikuspegiaz, beronen soinburu erori eta zango iharrez, pentsatzen du. Oskar Arana

Merkatua **ase** behar dute. Ana Urkiza

Alfabeto osoa luze iritzita, gutxiagorekin ere **ase** gaitezke, letren mundutik atera gabe: bokalen hurrenkera dugu horretarako, hau da a, e, i, o, u. Iñaki Arranz

"Gerrako denborak gogoratzera" hari eman zion erantzun murritzak ez zuen, noski, txoferraren jakin-mina **ase**; alderantziz, antza. Ramon Saizarbitoria

Gameluak urez **ase** zirenean, morroiak urrezko eraztuna hartu, bost gramokoa, eta sudurrean ipini zion neskatxari; eta eskumuturretan, ehun gramoko eskumuturreko bi ipini zizkion, urrezkoak hauek ere. Jose Antonio Mujika

Parke batean nekez **ase** daitezkeen premiak dauzkat." Mary Annek eta biok baiezkoa eman genion. Bernardo Atxaga

Tituluek eta sarrerak irakurlearen hasierako jakin-mina **ase** behar dute. Iñigo Aranbarri

-Horiek ere behar bat izango dute, bestela **ase** ezin dutena. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina bertutea nola ez den beretik mugitzen, nahiz lizunkeriak zeru-itxura pean gorteiatu, hala irritsa, aingeru distirant bati loturik ere, berdin **ase** litekek ohe zerutiar batean eta zaborretik bapo gizendu. Juan Garzia

Beste denda batek, Innocents plazaren parean zegoenak, sabeleko jakingura ematen zion, **ase** gabeko desiren oldar bizia pizten. Karlos Zabala

Jan zuten eta **ase** ziren, eta hamabi otarre geratu. Patxi Altuna

Ase dira, menturaz, euskaldunetarik haratagoko munduaren deabrutzeaz. Itxaro Borda

Denon jolasgura ongi **ase** genuenerako aspaldi ilunduta zegoen. Aitor Arana

Baroja ez zen ezerekin **ase**, eta ez zekien egiatan zer zuen eskas izatasun bete-betea eskuratzeko. Josu Zabaleta

Badaukazu nola **ase** egarria, horixe da dena. Lutxo Egia

Obra laikoen jai arratsaldeetara, gehienbat, eta egarria ondo **ase** arte, jakina. Josu Zabaleta

Garbi dakigun gauza bakarra da Robertok eta bere emazteak ikuskizun nardagarri honekin **ase** zituztela beren begiak. Juan Martin Elexpuru

Ase ginen, bada, eta horrelakoetan ohi genuenak hartu ziz-kigun hurrengo bi orduak: garagardoak erosi genituen taberna berera itzuli ginen. Anjel Lertxundi

Aski eta sobera **ase** zuten nire nahia berrogeita laugarren oinekoek. Joxan Elosegi

Sobrinoren hurrengo lanek oraindik jende gutxiago **ase** zuten. Iban Zaldua

Bide zuzen bakan horrexetan **ase** nahi izaten dute gidariek bihurguneek eragotzitako abiadura. Hasier Etxeberria

Ase zenean bustita zeukan kokotsa, baina ez zuen lehortu. Anton Garikano

Anshelek bere lagunaren jakin-mina **ase** zuen, eta berriketan egon ziren gaua heldu zen arte. Koro Navarro

Makina bat gizon hurbildu zen barandara eta gutxik egin zuen hantxe bertan neska haiekin beren grinak **ase** ez zituztenean. Karlos Zabala

Mokaduka probatzea atsegin du, pozean, baina **ase** denean koilara puntarekin dastatzen du puska bakoitza, patxada harrigarriz. Alberto Barandiaren

Ez soilki hilabete luzeetan menperatu desira **ase** zuelako, baizik eta jadanik sekulako gutizia baitzuen eguna laster iragan eta gaua berriz etor zedin. Elena Touyarou

Nire bidaiari buruzko jakin-mina **ase** du lehenengoan. Jon Arretxe

Soil soilik banekien matahamez **ase** ondoan Creac'heko faroa bisitatuko genuela, arratsa Menhiren bukatu aurretik. Itxaro Borda

Gure desio guztiak, baita desio sexuala ere, burmuinean hasten dira, eta hark bere beharrak **ase** ditzagun eskatzen digu. Luis Elberdin

Ez eta handinahi edo grinaren bat **ase** beharrez ere. Juan Garzia

Gero, **ase** ondoren, jaiki da, eta ni hain jota, hain etenik, hain ezdeusturik esnatu naiz, non ezin nintzen mugitu ere egin. Josu Zabaleta

Izuen galeriako munstroa **ase** ezinik ibili zen Herreran bolada hartan, eta behin eta berriz erauzten zigun bere partea, bere bahia. Jokin Urain

Aristotelesek Platonen kontrako jelosia eta Alexandrorengana - ko atxikimendua **ase** nahi zituen. Iñaki Iñurrieta

Bizitzak dohain zoragarriz **ase** nau eta den-dena kendu dit.. Ander Irizar

Gizakion arteko harremana gero eta hotzago, gero eta urrunago, gero eta exkaxagoa dela hirietan, alegia, eta animaliekin ez ote duten zenbaitek maitasun premia **ase** nahi izaten. Joxerra Garzia

Istorioa luzatu egin nahi dudala uste du, haien jakin-mina **ase** nahi ez banu bezala. Xabier Etxabe

Gose hori nolazpait **ase** behar da. Michel Oronoz

Ogi papurrak ere bota zizkieten, haiek janda **ase** zitezen. Pako Aristi

Baldin giza harremanek lan sortzailea, maitasuna, artea, balute oinarri, gizakion elkartze beharra ederki **ase** lezakete. Markos Zapiain

Gauza asko esan da gure Orentzero gizajoaz, baina, orain arte aditu ditudanetatik, bat bakarrak ere ez nau txoil **ase**. Patziku Perurena

Tabernako bezeroek, denak beltzak, hasierako kuriositatea **ase** ondoren - nor-zitekeen-zertara-norengana-gizaki-zuri-hura -, berenean jarraitu zuten. Iñaki Zabaleta

2 (era burutua izenondo edo izen gisa, berezko eta irudizko adieretan)

Sabel **asearentzat** mesprezagarri ezti-abaraska, sabel gosearentzat mingotsa ere gozo. Elizen arteko biblia

Ez dute inongo problemarik, osasuntsu eta ongi **aseak** daude. Elizen arteko biblia

Hodeiek, **aseak** daudelarik, euria egin ohi dute lur gainera. Elizen arteko biblia

Izan ere, hain izan zen betea bezperako eguna, eta hain iduriz eta gertakiz **asea** -katedraleko meza, Pisako karriketan barrena ikusi hainbat eszena koloretsu, osabaren fosila, Maurice Ducreuxekin izan genuen solas aberatsa...-, non haiek guztiak baitzetozkidan, bata bertzearen ondotik... harik eta iduri haien artean bat gailendu zitzaidan arte. Joan Mari Irigoien

Asko jan, gutxi jan, langileak lo egiten du gozoki; aberatsak, aldiz, bere **asean** ezin egin lorik. Elizen arteko biblia

· Lurpera ditzatela hilek beren hilak, hila lurpera eta biziak **asera**. Markos Zapiain

3 *ase arte*

Hau daukat mediku handi batek errana, untsalaz jendea ez litakeela sekulan mahainean egon behar untsa **ase arte**, beti xutitu tripa arrunt bete baino lehen. Herria

Kantauri itsasoak hegaluzearentzat ezinbestekoak diren bi baldintza betetzen ditu: batetik, janaria ugaria da, arraina bertan **ase arte** elikatzeko adinakoa. Berria - Ekonomia

Ase arte jan nuen. Matías Múgica

Gose bada, bera **ase arte** jaten dut neuk ere. Itziar Otegi

-Handizki-kontua bada - Santxok esan - inor ez nire nagusia baino handiagoa; baina, horrek daraman bizilegean, ezin ba janari eta botila berekin ekarriz ibili; hor etzaten gara noiznahi zelairen baten erdian, **ase arte** ezkurra eta mizpira jan ondorean. Patxi Ezkiaga

Behar den guztia bagenuen, hau da, **ase arte** jaten genuen (horren froga: astean lau aldiz erosten genuen haragia), bizimodua sukaldean eta ostatuan egiten genuen, bero egiten baitzuen han. Joseba Urteaga

Goseak zegoenean etortzen zen, eta kristauak janez **ase arteko** onik ez zuen izaten. Pako Aristi

-Zure gameluentzat ere ura ateratzera noa, **ase arte** edan dezaten. Jose Antonio Mujika

Ni ere **ase arte** olgatuko naiz egunen batez, zaude ziur. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hasieran, bitxi iruditu zitzaidan uraren emana, eta **ase arte** edan nuen gero, euri-uraren antz handia zuelakoan. Joxan Elosegi

Ase arte jango duzue, beraz, eta Jauna zeuen Jainkoa bedeinkatuko, eman dizuen lurralde ederrarengatik. Elizen arteko biblia

Ase arte tea edan ondoren, mahaiaren aurrean eseri zen; kandela bat emateko agindu, afixa sakelatik atera, kandelara hurbildu, eta irakurtzen hasi zen, eskuineko begia apur bat txiloturik. Jose Morales

4 *ase-ase egin*

Ez ezazu jan behar baino gehiago; bestela, **ase-ase eginda**, oka eginen duzu" (Es Zah 25,16). Xabier Kintana

Ase-ase eginda zeuden bazterrak urez, eta ordurako bareak ere eguzki pixka bat eskatzen hasiak ziren. Aitor Arana

Txakurretako batek, **ase-ase eginda**, begiak atseginez distiraz, atzamarrak usnatzen dizkio gizonari burdinsarean zehar, milikatu egiten dizkio. Oskar Arana

gari-jotzeak mahats-bilketara arte iraungo du eta mahats-bilketak ereinaldira arte; **ase-ase egin** arte jan ahal izango duzue eta lasai biziko zarete zeuen lurraldean. Elizen arteko biblia

5 *ase egin*

"Amuña Margarita" ipuinak ez ninduen **ase egin** nuen garaian; hala ere, badu ezaugarri bat geroztik ere landu izan dudana: ahozko hizkeratik abiatzea testu literario bat sortzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Bide horiek ezagutzea lortu nuelakoan edo **ase egin** nintzelakoa, nik ahal dakit, sinbolismoa irakurtzeari utzi nion urte dezentetan. Anjel Lertxundi

Bazen han Itinerario de Navegación izeneko liburua, erromantzez izkiriatua, eta harexekin hartzen nuen lengoaia horretan atsegin, itsasoan zuhur nabigatzeko jakingarriak baitziren hartan bildurik,eta horiek ikasteak **ase egiten** baininduen. Edorta Jimenez

Eta, horrela gertatuz gero, hiria berreskuratu baino lehen, Ivan Ogareffek **ase egingo** zuen duke handiaren kontra, enperadorearen anaiaren kontra itotzen zuen mendeku egarria. Karlos Zabala

Horiekin **ase egiten** naiz. Ana Urkiza

Eta zein puntutaraino gainera mugagabe behar horiek... Ekonomian, eta bereziki marketin alorrean irakasten eta ikasten da beharrak ez direla sortzen; hala errepikatzen da eskoletan behin eta berriz: marketinak beharrak sortu ez, **ase egiten** dituela. Iñaki Heras

6 *ase eta bete*

On Camillok irribarre egin zuen, **ase eta beterik**. Koldo Biguri

Don Kijotek, bere urdaila **ase eta bete** egin zuenean, honelatsuko arrazoietan hitz egin zuen. Patxi Ezkiaga

Eta hau bera, baina poronponpon gehiagoz antzesten du beste honek: Gabon, bonbon; Natibitate, **ase eta bete**; San Esteban, bestetako eran. Pello Zabala

"Ama-militantea naiz; inoiz ez naiz egoera honetan bezain boteretsu, **ase eta betea** sentitu". Arantxa Iturbe

Ez zaitez larritu, lagun maitea: hegan eramango zaitut plazerez plazer, gozamenezko itsaso batean murgilduko zaitut, ene aingerua, **ase eta bete** egingo zaitut!. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Euskaraz ere badira, edo egin daitezke horrelakoak: zinez eta benetan, **ase eta bete**, estu eta larri, huts eta soil, xehe eta xume, idor eta lehor, txukun eta garbi, adi eta erne, arin eta azkar, emeki eta poliki, higuina eta nazka, izua eta ikara, zikin eta lohi... Koldo Zuazo

Hemen freskaldi bat hartzen du eta pozez edaten jainkozko edaria, Jainkoaz **ase eta bete** arte, hain bozkariotsu, non zorion-gainezkaldian bere burua erabat ahanzten baitu. Joan Mari Lekuona

Ase eta bete zegoen. Lutxo Egia

7 *ase eta betean*

Hamaika ikusi izan ditugula alegia, aulkian eseri-eta handik mundua zuzentzen eta gobernatzen, gosearen ordez **ase eta betean**, hotzaren ordez giro epelean, biluzaren ordez jantzi apainetan, eta, lastairaren ordez, holanda eta damaskoz jantziriko ohetan. Patxi Ezkiaga

Puntarossako eliza mendi tontorrean zegoen eta postal-irudi bat zirudien, eta iritsi zenean On Camillok hango pinu-usaineko aireaz hauspoak zabaldu eta **ase eta betean** esan zuen. Koldo Biguri

8 *begiak ase*

Ase ditzala **begiak** bere Romeoren ikuspegiaz, beronen soinburu erori eta zango iharrez, pentsatzen du. Oskar Arana

Hupatu ahala, Lapurdi guziko paisaiek bai Larrun eta bere inguruko mendiek, gero eta gehiago **begiak asetzen** ginauzkitelarik. Herria

Eta ene oinak ez ziren nekatzen ez ene **begiak asetzen**. Joan Mari Irigoien

Etxe guztia zegoen pizturik, eta ilunpe ondorengo argi haiek **begiak asetu** zizkioten. Anton Garikano

Garbi dakigun gauza bakarra da Robertok eta bere emazteak ikuskizun nardagarri honekin **ase** zituztela beren **begiak**. Juan Martin Elexpuru

Halaxe engainatzen ditu simulakroekin Venusek maitaleak, eta ez **begiak ase** daitezke gorputzak aurrez ikusten, ez eskuek, gorputz guztian zehar deslai eta zalantzan dabiltzanek, erauz dezakete lohadar samurren ezer. Xabier Amuriza

Begiak aserik, hurbil gaiten beraz pesta lekurat, heian gogo bihotzek ere ukanen ote duten hazkurri poxi bat. Herria

9 *gosea ase*

Egia baldin badiozue, geldi bedi zuetariko bat preso, guztiok egon zareten kartzela horretan. Gainerakook joan zintezkete garia eramatera etxekoen **gosea asetzeko**. Elizen arteko biblia

Gelditzen zaionaz sua egin eta jatordua prestatzen du, **gosea asetzeko**. Elizen arteko biblia

Ahate bat haragi xehatu eta garraztuez betea, krema lodi baten gainean, garagarrezko ogia, esne gatzatua, azukre hautsa kanelarekin nahasia, eta pitxer bat kwass -Errusian oso arrunta den garagardo moduko bat-, zerbitzatu zizkioten berehalaxe, haren **gosea asetzeko** afari urriagoa nahikoa izanik ere. Karlos Zabala

Nireak izan zarete, nire hainbat hitz konbinazio eszitagarri, hainbat metafora sarigarri, hainbat ezkutaleku bakarti; eta letagin handiko basurde baten, donazio furgoneta baten, etnia oso baten odola ez litzateke nahikoa nire literatur **gosea asetzeko**. Eider Rodriguez

Joane Somarriba garaipen **gosea ase** ezinda ari da Emakumeen Biran. Berria - Kirola

Apetitua bazkatu behar da lehendabizi, gero **gosea aseko** bada. Berria - Kultura

Orduan lurralde hartako nagusiak esan zigun: "Honela jakingo dut jende zintzoa zaretela: zuetako bat nirekin geratuko da; besteok hartu etxekoen **gosea asetzeko** behar duzuen garia eta joan zeuon etxera. Jose Antonio Mujika

Gosea asetzeko adina janari hartu ondoren berriro zelaian bildu ginen. Imanol Unzurrunzaga

Baina beheiti-goiti zetorkidan ulu hura ere ito beharra nuen neure ezinaren eta neure amorruaren kontra, zeren zerbait eraginkorragoa behar bainuen nik orduan, ene mendeku **gosea ase** zezakeena, eta ene barrena bare eta sosega. Joan Mari Irigoien

"Praktikek enpresaburuen diru **gosea asetzeko** balio dute, ikasleak prestatzeko balio beharrean». Berria - Ekonomia

Eta hark jendearen musika **gosea ase** zuen. Berria - Euskal Herria

Haizea altxatu zen kukula gainetan, eta ezkur- **gosea asetako** uso saldo batek hegoak astindu zituen, nagiak atera ondoren lehengo adarretara bueltatzeko. Joxemari Urteaga

Arrantzaleen ontzian gatibatuek, jendearen **gosea asetzean**, Jainkoak emandako patua betetzen dute oharkabean. Joseba Sarrionandia

Zeren, nola daiteke hobe egarria eta **gosea asetzea**, Malenkonia ohiltzea baino? Piarres Xarriton

Apetitua bazkatu behar da aurrena, **gosea aseko** bada gero. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ase ahal izan (3); **ase arte** (29); **ase arte edan** (4); **ase arte jango** (4); **ase ase** (5); **ase behar** (12); **ase beharra** (3); **ase dira** (3); **ase ditu** (4); **ase ditzala** (3); **ase ditzan** (3); **ase du** (5); **ase egin** (3); **ase eta bete** (8); **ase ez** (4); **ase ezin** (6); **ase ezina** (4); **ase ezinik** (7); **ase gabe** (9); **ase gabeko** (3); **ase gura** (3); **ase nahi** (13); **ase ondoan** (5); **ase ondoren** (6); **ase ziren** (4); **beharrak ase** (11); **beharrak ase ahal** (4); **bere beharrak ase** (4); **egarria ase** (11); **eskaera ase** (3); **ezin ase** (10); **gosea ase** (4); **gutxi ase** (3); **guztiak ase** (4); **hala ase** (3); **hori ase** (4); **inor gutxi ase** (3); **jakin mina ase** (8); **mina ase** (8); **nahia ase** (3); **nekez ase** (5); **nola ase** (4); **ongi ase** (3); **premia ase** (3); **premiak ase** (6); **urez ase** (6)

asea da (3); **asea naiz** (6); **asea zen** (7); **ezin asea** (8); **ezin asea zen** (3)

baino aseago (3)

ezin aseak (6)

---

asealdi *iz* asetzea; asetzerainoko jan-edana.

Fisikoki ez nengoen ongi, baina ezta psikologikoki ere, **asealdien** ondoko hutsuneak gero eta handiagoak egiten baitzitzaizkidan, asperrak-edo jota. Joan Mari Irigoien

Zerbait egitera beharturik, zorte pixka batekin **asealdi** bat nahikoa izango zitzaiolakoan, bekatuaren atsegina erakutsi zion. Migel Angel Mintegi

Eta, izan ere, ohartu nintzen edertasun **asealdi** baten behar larria nuela. Alberto Ladron Arana

Noizik behinka, bezperan afaltzea ahaztu zaidanean, biharamunean **asealdi** ederra egiten diat hemen, gauza gozo hauek guztiak nola datozen ikusiz. Karlos Zabala

Ezar itzazu gainbegiraleak, zazpi urteko **asealdian** lurreko emaitzetatik bosteko baten zerga bil dezaten. Elizen arteko biblia

---

asean *adlag* asebeterik, aserik.

Eta itsasoratzeko egunaren bezpera iritsi zen, eta gauez, **asean** eta betean afaldu ondoren, ez nuen kasik lorik egin, hain bainengoen, alde batetik, esperantzaz beterik, eta, bertzetik, erreus eta urduri. Joan Mari Irigoien

Negozioa **asean** eta betean zihoan; izan ere, poetok oso ezagunak ziren hiriko giro sozial eta literarioan. Josetxo Azkona

Asean dagoen zerri baten iduria zuen, sekulan ez zuen arma bat ukitu, eta sekulan ez zen bertze gizonekin borrokatu. Aurelia Arkotxa

---

asearazi, asearaz(i), asearazten du *ad* asetzera behartu.

Handik goiti jokatu da egiazko partida, interesgarria baina bi irabazleak Mayteri ari baitziren, gibelerat, hau **asearazi** dute zinez, ainitz huts eginarazi ere, usaiaz kanpokoak. Herria

-Gaizoak, jadanik **asearaziak** ditut ene aitatxiren abenturekin. Eneko Bidegain

Brasil herria hego Amerikaren parte haundi bat daukana, lan haunditan da bere biztanleak nola **asearaziko** dituen miliunka. Herria

Hastetik, Aramburuk Muscarditzi pilotak ken-ahala ken, gainez, eta bero ito harekin Biscouby **asearaz** gibelean, beroak usaiako zainak banotuak zaizkola ikusiz. Herria

---

asebehar *iz* asetzeko beharra.

Biziaren mirari hori gertatzen bada, eta gutxi gehio beti gertatzen da, hortxe hasiko dira gure hurritz anderearen eztizko eztaiak, eta udaberrira arte luzatuko, inork inoiz ikusi gabeko amodio jolas eta bizi grinen **asebehar** txit atseginetan. Patziku Perurena

---

asebete, asebetezen **1** da/du *ad* guztiz ase.

Gizendu egin zen Jexurun eta ostikoka hasi - **asebete** zinen, gizendu, lodi-lodi egin-; bere egile zuen Jainkoa utzi zuen eta salbatzaile zuen harkaitza desohoratu. Elizen arteko biblia

Nekazari guztiak, ordea, ez ziren **asebete** gobernuak hartutako neurriekin. Berria - Ekonomia

Berehala **asebete** zen, kurrixka txikiak eginez. Anjel Lertxundi

Legea aztertzen dutenak hartaz **asebeteko** dira, baina itxurazale direnentzat oztoparri gertatuko. Elizen arteko biblia

Nor bere hitzen fruituez elikatzen da, nor bere mintzoaren emaitzez **asebetetzen**. Elizen arteko biblia

Hiri hura ia gainezka egin arte **asebetetzen** zen, zuzenbidearen defendatzaileak erbestean gosez hiltzen ziren bitartean. Karlos Zabala

Ordubete nahigabeturik eta irrikaz zain egon ostean, nekez **asebeteko** zen istant labur bateko imajinarekin. Patxi Zubizarreta

Ezin **asebete** naiteke gehiago polemikako egiez.Torturatzaile ankerrek errugabeen odolaz bazkatu zuten beren haserrea, baina ez ziren hala ere **asebete**. Josu Zabaleta

Celari ez zaizkio pertsonaiak interesatzen, haiek egindako izugarrikeriak baino: horregatik ez nau sekula **asebete**. Anjel Lertxundi

Izan ditugun hainbat udal gobernuk ez dute herritarren zati baten nahiak **asebete**. Berria - Mundua

Zekenak, gehienetan, nahi du besteen kostuz, janez eta edanez **asebete**. Piarres Xarriton

Lo-itxura egiten du eta uzten die **asebete** arte edaten. Joan Mari Lekuona

Beldurrik eta zuhurtasunik gabe edan zuten **asebete** arte. Agustin Otsoa

Asebete arte jardun dugu, ustekabean oasis batekin topo egin duten gamelu egartsuen antzera. Mirentxu Larrañaga

Oka egin arte **asebete** zirenean, mozkor-kantaz zikindu zituzten hiriko plazak. Askoren artean

Ez dakizu zer puntutaraino **asebete** ninduzun, bost urtez ume-itxaropenetan egon ondoren ez zenidan huts egin, ez horixe! Eduardo Matauko

Nahiago zuen bere gorputzaren premiak pazientziaz eta gogo onez eraman, haiek **asebete** baino. Askoren artean

Gasteizko Euskara Planak ez du **asebete** euskalgintza. Berria - Euskal Herria

Ez zuen bere gorputza **asebete** nahi, beste anaiak gabe izango zirela uste zuen gauzetan. Baina "gogoa zabal"tzeko deiak ez zuen Greg **asebete**, dotrina eta bizimodu arautuago baten premia baitzuen. Askoren artean

Hik ere hala uste al duk, gure bizitzari grinak ematen diola zentzua, egun batean gure bihotza, gure arima eta gure gorputza **asebete** eta, zernahi gertatuta ere, hil arte erretzen jarraitzen duen grinak? Xabier Olarra

Guztiz **asebete** egin zela konprenitu nuen, itxura kaxkar xamarreko iruditu zitzaidan galdera bat egin baitzidan: [...]. Joxan Elosegi

Atzo goizeko Zapateroren mintzaldiak, baina, bere alderdikideak **asebete** zituen. Berria - Harian

Abasek ez erakarri ez berarengan zegoen emetasuna hunkitzen ez bazuen ere, gizonari zerion urregorriarekin lilura zitekeen, gizona gai izan zitekeen bere handinahia eta botere irrikak **asebetetzeko**. Patxi Zubizarreta

Morroiak isurtzen omen zuen "barne-bakea" aski zuen, nonbait, gogoa **asebetetzeko**. Aingeru Epaltza

-Badakik arrazoi horrek ez nauela **asebetetzen**. Anjel Lertxundi

Ba ote da beren seme-alabak erabat **asebetetzeko** gauza diren gurasorik? Josu Zabaleta

Orduan emakumeak erantzun zion bere etxera joan behar izango zuela, eta han **asebeteko** zituela gobernadorearen desirak. Patxi Zubizarreta

Gauza jakina da -idazten du Donostiako Kronista Ofiziala izan zenak- hainbat hipotesi izan direla Danborradaren jatorriari buruz, baina bat bera ere ez da inor **asebetetzeko** gai. Askoren artean

Haren memoriara esaldiak datoz, irakurketak, bizipenak, pentsamenduak eta teoriak, eta horiek guztiak kontatzeko gosea **asebetetzen** duenean bakarrik sentituko du sorlekura iritsi dela berriro, abiapuntura. Pako Aristi

2 (era burutua izenondo gisa)

Izan ere, besteren begian samarrari antzemateko gai den pertsona **asebete** horietarikoa baitzen. Patxi Zubizarreta

Haren goseak ene gorputz **asebete** hau ekarri zidan gogora, ene begitarte guri gorrizta, eta, lotsarekin batera, negargalea etorri zitzaidan. Patxi Zubizarreta

Erdigune **asebete** horren abarrak dira bere bizitzaren bigarren mailako helburu guztiak: laguntasuna gizonekin, umore zakar eta zuzena, gustuko ditu behar besteko jan eta edan oparoak -biak onak-, jokoa, bere autoa, bere irratia, bere ondasun guztiak... eta hargatik hazi-eramailearen domina darama paparrean. Xabier Paya

Min samin batek hartu zion bihotza, hantxe hil baitzitekeen gosez, Paris **asebete** haren erdian, merkatu nagusiaren iratzartze distiratsu hartan. Karlos Zabala

Baretasun **asebete** handia zen harena, lasaitasun aparta, deusek ere, ezta irribarre batek ere, aztoratzen ez zuena. Karlos Zabala

Afarian, **asebete** eginik geratu ziren berriro. Jose Morales

· **Asebeteko** irribarre ukatu ezin bat ezpainetan zuela, aretoko presidentzia-mahaitik jaiki eta dotoreki joan zen aurreko oholtzara. Josetxo Azkona

3 irud/hed

Azken buruan, predikatu baten hedadura predikatu hori **asebetetzen** duten objektuen multzoa da. Askoren artean

Zortzigarrenekorik erraten da delako zorion beteginak edo perfektuak **asebetetzen** dituela gizakiak naturalki edozein ontasunez azten dituen lehia guztiak. Piarres Xarriton

Baina Yolandeek ez dute bakardadea **asebetetzen**. Eskarne Mujika

Freden eta Georgeren ametsik zoroenak ere **asebetetzeko** moduko txantxak eta trikimailuak zeuden; Oi zu ene arima, Jainkoaren iduriak zeinatua, Haren eiteak apaindua, Hari fedeak hitzemana, Haren izpirituak dohatua, Haren odolak irabazia, Haren aingeruekin parekatua, Dohatsutasunera deitua, Zorionaren oinordekoa, Arrazoiak **asebetetzekoa**, zer duzu behar horrenbeste malapartatu behar zaituen Haragiarengandik? Iñaki Mendiguren

4 ***asebetean*** *adlag* ezin delarik gehiago jan edo edan.

Asebetean jan zuten; eman zien Jainkoak irrika zutena. Elizen arteko biblia

· Zu zara neurritasuna, / zu zara gure aberastasun guztia **asebetean**. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asebete arte (7)

asebetetzeko moduko (5); **gogoa asebetetzeko** (3)

asebetetzen ez (3); **asebetetzen nau** (3); **ez duela asebetetzen** (3)

---

asebetegarri *izond* asebetetzen duena.

Diafragma eta obturadorea konbinatuz, ordea, argi-intentsitateen eskalaren esparru zabalagoan lortuko ditu argazkilariak emaitza **asebetegarriak**, eta lagungarri gertatzen da konbinazio hori egoera berezi batzuetan. Irene Aldasoro

Adan-aurreko, iz. Arraza esperimental eta itxuraz ez oso **asebetegarria**, kreazioa baino lehenagokoa eta oso erraz ez asmatzeko moduko bizimodua egiten zuena. Xabier Olarra

Lehenengo Mundu Gerraren ondoren errealitatea ez zitzaion batere **asebetegarri**; iritzi berekoak ziren "Belaunaldi Galdua" idazle-taldeko gainerako kideak ere. Lopez de Arana

Nire bizitzako larrujotzerik beteena izan zen, norbaiten (edo norbaitzuren) hazia hartu eta aldi berean norberarena ematea bezalako sentsazio **asebetegarririk** ez dago-eta. Aitor Arana

Oro har, ordea, onartzen da molekularen tamainak eta formak substantziaren usainarekin erlazioa dutela, oraindik aurkitu ez bada ere sailkapen numeriko edo geometriko **asebetegarririk**. Irene Aldasoro

---

asebetetasun *iz* asebetea denaren edo dagoenaren nolakotasuna.

Ahotsean **asebetetasuna** nabari du. Xabier Olarra

Nire baitako bozkario apurra, edo gure guztion baitakoa, **asebetetasun** lazgarri bilakatu zitzaigun laster batean, hurrengo erabat ezabatzeraino. Mirentxu Larrañaga

Beldurraren eraginez bezain esker onez, Big Lannie ezin hobeto aritu zen lanean Ewing andrearentzat, damak berak ere **asebetetasunezko** adierazpenak egiteraino, zenbaitetan; alegia, etxeko arropa zuri lihozkoa eta senar-emazteen janzkiak, oro har, zein ederki utzi zizkion goraipatzeko. Mirentxu Larrañaga

---

asebetetze *iz* guztiz asetzea.

Birjintasuna behin baizik ez da galtzen, nik aukera nuen orain hartaz libratzeko aspalditik idealizatua nuen moduan, eta batere gogorik ez nuen halako **asebetetze** osoa alferrik galtzeko. Karlos Zabala

Zenbait huskeri ez nituzke aipatu nahi: esate baterako alkandorarik ez eta zapatak urri, aldagarri gutxi eta gehiegi leunduak berak; ezta halako **asebetetze** haiek ere, aldi onak bazkari handiren baten aukera ematen dienean. Patxi Ezkiaga

Kontrako norabidean, gure artean oker gertaturiko okintzako saioek erakutsi ziguten bezala, makinaria txikiagoa baliatuz ez dago serie amaigabeak egiteko premiarik, produktua azkarrago eta kalitate hobez ekoitz daiteke, bezeroaren nahia berariaz **asebetetzearen** mesedetan eta kosturik altxatu gabe. Edorta Agirre

---

asebide *iz* asetzeko bidea.

Ordain, iz. Oker baten kalteordain gisa ematen den **asebidea**, eta okerra egitean sentitutako asetasunari kendu behar zaiona. Xabier Olarra

Ateka haietan izaten nintzelarik, haragiaren minak dituen beste **asebide** batzuk erakutsi zizkidan sorterriko Ines etortzen zitzaidan gogora. Edorta Jimenez

Zzerbitzuak, garai hartan, ez zian **asebide** handirik ematen. Xabier Olarra

---

asedio *iz* setioa.

Denbora gaztelu latzegia da, murrailaz josia eta ongi zaindua, batzuetan urteak iraun dezakeen **asedio** baten ondoren eskuratuz gero hain erraz berriro etsaiari emateko. Pako Aristi

---

aseezin *(orobat **asezin** g.er.)* **1** *izond* ezin asezkoa.

Zinez da gizakia izaki **aseezina** ! Joan Mari Irigoien

Bere gorpuzkera handia gorabehera, osaba Kamil ez zuten jatun **aseezintzat** , nahiz eta gozokietarako sabelkoia izan. Patxi Zubizarreta

Durant jaunak bildumazale nekaezintzat eta irakurle **aseezintzat** zeukan bere burua. Mirentxu Larrañaga

Diruzale **aseezina** zen, gizon zakarra, bi anaiak gosekilak balira bezala hartu zituena, haren etxera lehenbiziko aldiz agertu zirenean. Karlos Zabala

Merkatari **"aseezinen** " estalkitzat jo dute Sintrabi. Berria - Ekonomia

Albert Einsteinek berak oso gertutik ezagutzen zituen naziak; aski ondo zekien haien berniz distiratsuak barbaro **aseezinena** ezkutatzen zuela. Fernando Morillo

Oker hago, nire liburuen lapur **aseezina** . Bernardo Atxaga

Aski ondo zekien haien berniz distiratsuak barbaro **aseezinena** ezkutatzen zuela. Fernando Morillo

Oso harrigarria da haren emaztearen portaera: ezkonduta daramaten 15 urteetan -1763-1778-, Donatien libertino **aseezinak** egin dituen demasiak eginda, beti aterako da haren alde, beti barkatu du -baita bere ahizparekin ihes egin zuenean ere-, eta beti itzuliko da haren ondora. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 (gauzei edo egoerei buruz)

Baina, alferkerian ohitu haiz, eta nahiago duk eskean ibili sabel-zorro **aseezin** hori betetzeko. Juan Kruz Igerabide

Entretenimentu jolastienak eta kuriositate **asezina** gozatzen didatenak, egia, eguraldiaren norabide neurtezinak eman ohi dizkit, egunetik egunera, beti berri, beti ezustekoen harilean. Pello Zabala

Loreren alu sakon **aseezinak** ene sabeleko isuria irentsi zuen. Aitor Arana

Sukar kiskalgarria, nahasdura bortitz eta kasik jarraikia, egarri **aseezina** , horra nabari zaion guztia. Jon Muñoz

Arimak duen jainko-aniztasunaren gose **aseezinak** eraso zien unibertsoko indar naturalen itxurazko aniztasuna islatzeko. Iñaki Mendiguren

Diru-gose **aseezina** piztu zitzaiolarik, auzia jarri zion Jainkoaren gizonari aspaldi saldutako harriengatik, ez zizkiola behar bezala ordaindu eta. Askoren artean

Egarri **aseezinez** itxaro dugun zoriona irrikatzeko. Askoren artean

Badaki dena esanda dagoela, badaki, halaber, topikoen gatibu dela, baina barrengo har **aseezinak** idaztera behartzen du. Anjel Lertxundi

Lurrera erortzen utzi zuen gorputza, eta goibeltasun izugarri eta itxaropenik gabearen har **aseezina** bihotzaren alboan kiribildu zitzaion. Jose Morales

Beti ez dira izan behar botere **aseezinek** ezarritako merkatu legeetan oinarritutako kontzeptuak. Berria - Euskal Herria

Hala ase ahal izan zuen honek Catalinarekin bere haragi **aseezinaren** desira, Buccio bertze egiteko haietan enplegaturik zegoen bitartean. Joan Mari Irigoien

Agi danez, gizakion gaiztakeria ahalmena agortezina da, **aseezina** . Karlos Linazasoro

Horiei, nazionalismo periferiko **"aseezin"** horiei ematen badiegu erabateko baimena gure antzera gozatzeko, "nazio" hitza barne, non dago gure berezitasuna nazio bezala? Joseba Zulaika

Nazionalista etniko **aseezinengandik** oso gainetik dagoen Estatu demokratak beretzat esklusiboki nahi du "nazio" hitza. Joseba Zulaika

Betiereko **aseezin** horietakoa izango zen bera ere agian, ez zituen beharbada bere esan garratzak, bere doinu eztabaidaezina, bere solas suntsitzaileak, hainbatean neurtuko. Joxan Elosegi

Baina guztiaren gainetik, atleta bikainak dira, eta **asezinak** . Berria - Kirola

Entretenimentu jolastienak eta kuriositate **asezina** gozatzen didatenak, egia, eguraldiaren norabide neurtezinak eman ohi dizkit, egunetik egunera, beti berri, beti ezustekoen harilean. Pello Zabala

3 (izen gisa)

Egileek beti zuzentzen dute, **aseezin** eternoak gara, ezin besterik izan, perfekzioa zeruko erresuman baizik ezin daiteke bizi. Jon Alonso

Betiereko **aseezin** horietakoa izango zen bera ere agian, ez zituen beharbada bere esan garratzak, bere doinu eztabaidaezina, bere solas suntsitzaileak, hainbatean neurtuko. Joxan Elosegi

Gutizia **aseezinak** eta beldurrak bultzaturik. Agustin Otsoa

4 (adizlagun gisa)

Saman behera jaitsi zait **aseezin** , mihia belarrira hurbilduz, nik lokietatik heldu eta zinta kenduz ilea askatu diot. Urtzi Urrutikoeetxea

Sindikatuaren ustez, Bizkaiko metalgintzako patronala **"aseezin** " aurkezten da, beste sindikatuek aurkeztutako "eskaeren murrizketen" aurrean izandako erantzunagatik. Berria - Ekonomia

Aldaketa horiek, batzuetan, badirudi aitzakia nagusia direla munduko herritargoari baldintzak ezartzen dizkioten botere esferentzat, naturarekin eta pertsonekin **aseezin** eta errukigabe ageri den merkatu global bat asetzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

5 ***aseezineko*** *izlag* ezin asezkoa.

Aseezineko txakur goseak dira. Elizen arteko biblia

Amorrua sutan piztu zen **aseezineko** sugarretan; eta beldurra ke beltz itzelaren antzera hazi zen, itogarri. Agustin Otsoa

Ikusia zuen, beraz, Gumraken gertatua, soldadu errusiar presoak gizajale bihurtuak, eta ikasi ere bai, horregatik, Heriok **aseezineko** gosea daukala. Felipe Juaristi

Zentzu morala galdurik, lizunkeriara jo dute, **aseezineko** antsiaz era guztietako bizioetara emanak bizitzeko. Elizen arteko biblia

---

aseezintasun *iz* aseezina denaren nolakotasuna.

Aseezintasun hori gizonaren baitakoa da. Karlos Linazasoro

Baina Egutxi agurea ez zegoen ohituta ezer esaten ez zuen neskato batekin egotera, begiak irekitzen ez zituen neska batekin, bera hor zegoela ohartzen ez zen neska batekin, eta ezin zuen egotzi **aseezintasun** antzuaren sentipena. Ibon Uribarri

---

asegabe **1** *izond* asetu ez dena.

Bizkor gainditu zituen janari espiritualaren gose **asegabeak** . Iñaki Mendiguren

Mahaira itzultzen naizenean, ulertezina iruditzen zait gure seme-alaben jangura **asegabea** . Iban Zaldua

Ezin dut musu bat eman masaila batean besarkatzen dudanaren ondoan beste haren masaila ikusi gabe, eta torturapean naukan desira **asegabe** honek oinaze bizitan jarri gabe. Josu Zabaleta

Albuinok Rosamundarengatik sentitzen zuen desira **asegabeak** gepidiarren suntsidura eragin baldin bazuen, sinesgarria da Troiaren arpilatzea Paris-ek Helenarengatik sentitzen zuen desira asebetetzeak eragin zuela. Iñaki Mendiguren

Jakin-nahia **asegabea** zuen, eta belarrira iristen zitzaion guztia instantean harrapatzen zuen. Berria - Kultura

2 (esnekiez mintzatuz)

Oilo-arrautzarekin eta behi-esnearekin hainbat saiakuntza egin dira, gantz azido aseen partez arrauzkiek eta esnekiek **asegabeak** (insaturatuak) eduki ditzaten. Edorta Agirre

3 (adizlagun gisa)

Jaunak ez du zintzoa goseak uzten; bai, ordea, gaiztoen irrika **asegabe** . Elizen arteko biblia

4 ***gantz asegabe***

Bestetik, kontuz ibili beharko dute, **gantz asegabeen** kontsumoa dela eta, koko, palma eta palmito olioak saturatuak baitira. Edorta Agirre

---

asegabetasun *iz* asegabea denaren nolakotasuna.

Betiereko nahimena, definizioz, betiereko **asegabetasuna** da: mundua, nahimen esentzial gisa, esentzialki mina eta sufrimendua da. Askoren artean

Eta ez da sexu arloko **asegabetasuna** martirizatzen nauen gauza bakarra. Jon Arretxe

Sistema horrek **asegabetasun** eta halako ezgaitasun maila handi bat eragiten duela erakundeetan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Kondenatua, hori da hitza; zoritxarrezko kondena, **asegabetasunezkoa**. Josu Zabaleta

---

asegaitz **1** *izond* asetzen zaila dena.

Gu, despotismoaren idolo **asegaitzari** sakrifikatutako biktimak. Juan Martin Elexpuru

Autoaren barrenetik ikusten zituen Kauffmannek Sararen begi horiak, begi iheslariak, begi hegalariak, begi **asegaitzak** lurrera begira, emakumea karrikan zehar zebilela. Felipe Juaristi

Begi **asegaitz** eta gaiztoen antzeko argiak ikusi, eta piztia basatien eta izaki torturatuen oihu ikaragarrien antzeko hotsak entzuten zituen. Agustin Otsoa

2 (gauza astraktuez)

Bere jakingura **asegaitzak** eraginikoa. Zaldiak gose bakarra dizu, gizakiak ordea gose klase **asegaitz** asko. Xabier Montoia

Mirande erromantikoak esaten zuen, aberastasuna ez dela izatez txarra, baina (diru, ohore, plazer) gose **asegaitzak** aberetzen duela jenderik gehiena. Patziku Perurena

Boz mehe **asegaitz** batez egin zidan, latinez, hiriaren harresiak bustitzen zituen ibaiaren izenaren galdea. Juan Garzia

Gorputza murgilarazten zien egarri lehor **asegaitzari**, ostera, berdin zitzaizkion tantatxo batzuk zein euri mardula. esanahi baztergabe, mirarizko baina misteriotsuko zerbait sentitzen zuen, eta horrekin batera oroimin **asegaitz**, irrikagarri eta gazi-gozoa. Xabier Amuriza

Baditugu grina **asegaitzak**, joera ilunak, ahultasun aitorrezinak, apetaldi inozoak, frustrazio ezkutuak, barne-aldaketa irrazionalak. Pako Aristi

Obra filosofiko handi bat sortzeko irrika **asegaitza**. Berria - Kultura

Merkataritza guneen "diru gose **asegaitzari**" leporatu diote ordutegiak aldatzeko ekimena. Berria - Ekonomia

Ttipiren ordenagailu **asegaitzean** zeudekeen gisako datuak eta are pentsaezinagoak ere. Aingeru Epaltza

Emakume bat jakin-minaren madarikazioak joa den jakiteko desioa da gizonezkoaren arimaren grina bizi eta **asegaitzenetako** bat. Xabier Olarra

Bere amodioa sentimendu fin halako bat zen, desira **asegaitzez** nahasia. Patxi Zubizarreta

Gizabidetsu, jateari zeuk utzi lehenengo; ez **asegaitz** izan eta ez zara lotsagarri gelditukо. Elizen arteko biblia

3 (adizlagun gisa)

Tramankulu keinukariak **asegaitz** irensten zizkien txanponak, tarteka bat edo beste itzuliz. Migel Angel Mintegi

Nik ez dut ezer entzun -erantzun zion **asegaitz** ahoskeraz gure musak-. Jon Arretxe

---

asegaiztasun *iz* asegaitza denaren nolakotasuna.

Jendearen erosi-beharreko **asegaiztasun** edo ninfomania behar zen sortu edo antolatu. Iñaki Segurola

Handiustea litzateke **asegaiztasun** hori intelektual jendearen patu esklusiboa dela pentsatzea eta ez gizaki guztiona. Xabier Mendiguren Elizegi

Huraxe zen nire plana, bada, baina plan eskas hura ere ezin izan nuen gauzatu, arazo berria sortu baitzen: nitaz apur bat arduratzen zen pisukide bakarraren **asegaiztasuna**. Jon Arretxe

---

asegarri *izond* asetzen duena.

Formula bati **asegarria** esango diogu, interpretazio baterako gutxienez segida batek asetzen badu. Askoren artean

Horren ondorioz, denetik (gantz, karbohidrato, proteina) gutxiago kontsumituko dugunez, lehendabiziko fase batean produktu **"asegarrien"** kontsumoa biderkatu egingo da, kulturala den gose sentsazio hori ezabatzeko. Edorta Agirre

Gizakiaren patua gizagaineko lege batek gobernatzen bazuen, lege hori aurrerapenaren legea zen, erabat **asegarria**. Iñaki Mendiguren

Asegarria gertatzen den ala ez ikusteko, aldagai hori interpretazio-unibertsoko elementu guztiekin ordezkatu behar dugu. Askoren artean

Ez dirudi **asegarria** denik Fregeren bertsio enpirista. Askoren artean

---

asegarritasun *iz* asegarria denaren nolakotasuna.

Metahizkuntzaren eremuan oso erraza da "egia" **"asegarritasun"** bezalako kontzeptu semantikoetara laburtzea. Askoren artean

Semantikaren bidez formulen esanahia, **asegarritasuna** edo egia-baldintzak finkatzen dira, besteak beste. Askoren artean

Egiaren kontzeptua zuzenean definitu beharrean, **asegarritasunaren** kontzeptuaz baliatu zen aurretik, aldagai askeak dituzten formulak ere kontuan hartzeko. Askoren artean

Aldagai askerik ez duten formulei dagokienez, zuzenean azter dezakegu egiazkoak edo faltsuak diren, **asegarritasunaren** kontzeptuaren laguntzarik gabe. Askoren artean

Asegarritasunaren nozioaren bidez definitzen da formula bat noiz den egiazkoa. Askoren artean

---

asegurantza **1** *iz* asegurua.

Deschampsek eta Marakhovskik zail ukanen dute, oraindik ez dietelako baimenik eman **asegurantza** eta gainerako paper kontuengatik. Berria - Kirola

Behar dituzte beren paperak atera, nehoizko kondenamendurik ez eta, gauzak ongi iraganez, **asegurantza** sozialeko paperak ukanen dituzte. Herria

2 ***gizarte asegurantza*** estatuaren zerbitzua, langileen osasunean eta ekonomian gerta daitezkeen gorabeherak zaintzeko egitekoa duena.

Soldata oso apalak, **gizarte asegurantza** babesik gabe, mugagabeko lan ordutegiak, eta abar. Iñaki Heras

Etorkinentzat **gizarte asegurantza** bereizia proposatzen zuten eta lanik ez edukitzea atzerritarrak kanporatzeko arrazoi nahikotzat zuten. Berria - Mundua

Hola ikusi ditugu Borloo jauna giza loturako ministroa erranez zer egiten duen jende dohakabeen alde gizarte hausturarik izan ez dadin, Douste-Blazy jauna osagarriko ministroa **Gizarte Asegurantzaren** ziloa tapatu nahiz. Herria

Itunak **gizarte asegurantzaren** kudeaketa dezentralizatuko luke, baina frantsesa hizkuntza nagusitzat duen Waloniari egun jasotzen dituen laguntzak ziurtatuko lizkioke. Berria - Mundua

Gizarte Asegurantzaren bideragarritasun eza eta berehalako porrotaren gaineko mezuak areagotu dira azken hamarkadotan. Berria - Ekonomia

---

aseguratu, asegura(tu), aseguratzen **1** du *ad* segurtatu.

Labur: biltzarraren eginkizuna ez da eta bost axola behar zaio, injustiziarik egon den ala ez, krimenik, errurik; arduratu behar duena ere ez da justizia egitea, baina etorkizuneko interesak **aseguratzea**. Joxe Azurmendi

Oso garbi ikusten zuten jarduera ekonomikoaren jarraipena bermatzeko ezinbestekoa zela jarduera horrek oinarritzat zuena **aseguratzea** , naturak ezartzen zituen mugak errespetatuz betiere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Harreman hauek markatuz muga daitezke eremu batetik besterako zirkulazioa **aseguratzen** duten bideak, eta baita **aseguratzen** dutenak ere lekualdatzea, kontzeptuen aldaketak, euren formaren edo aldaketaren erabilpen-arloa. Xabier Arregi

Era berean, diskurtso zientifikoak (edo ustez zientifikoak) ez du **aseguratzen** funtzio bera ekonomia jakitearako XVII. mendean eta XIX. mendean. Xabier Arregi

Aseguru agentea: Baina zure etxea **aseguratu** gabe erretzen bada, erabateko galera izango da. Xabier Olarra

Ez ahal didazu orain berriz tapiza pagatu nahiko, **aseguratuta** gaude suteen kontra. Anton Garikano

2 (era burutua izen gisa) aseguru bat duen pertsona.

Aseguratuak konpainiari bere enplegatuetako edozeinek egindako hutsegite, iruzur, diru-ebasketa edo lapurretaz parte emango dio, horietako batek edo bere nagusiek aipatu delituen berri izan eta hogeita lau orduko epean. Xabier Olarra

Horregatik, konpainiek, arrisku hori saihesteko **aseguratuari** kalteak sortuko lukeen galeraren parte bat bere gain hartzea eskatzen diote, gutxieneko zuhurtzia erakuts dezan. Iñaki Heras

---

aseguratzaile *iz* segurtatzailea.

Gizon ausarta eta iraunkorra gora behera guzien artetik, ardura ainitz zaukan errient lana utziz geroz ere: etxeko ostatua, **aseguratzaile** lana eta ur sindikatuaren buruzagitza. Herria

---

aseguratze *iz* asegurua.

Aseguratze pribatuaren defendatzaileek erabiltzen duten argudio bakarra. Iñaki Heras

---

aseguro ik **aseguru**.

---

aseguru *(ETCn **7.721** agerraldi; orobat **aseguro** g.er.)* **1** *iz* pertsona edo gauza bat arrisku jakin batetik babesten duen kontratua. ik **asurantza**.

Lurrikaren kontrako **asegurua** . Xabier Olarra

Zure **asegurua** ezeztaturik geratzen da. Xabier Olarra

Lasai, gizona, nire **aseguruak** ordainduko du dena. Xabier Mendiguren Elizegi

Itsasontzien eta haien zamen **aseguruek** ere, antzeratsu, meteorologiaren azterketa eskatzen zuten. Iñaki Mendiguren

Lasai, gizona, **aseguruak** ordainduko du. Patxi Iturritegi

Bazen Obaba aldean gizon bat suteen aurkako **aseguruak** egiten ibiltzen zena. Bernardo Atxaga

-Ez duzu inoiz **aseguruetan** lan egin. Oskar Arana

Editoreak, ordu batzuk geroago bere burua entregatu zuenak, ukatu zuen inolako interes ekonomikorik -**asegurua** kobratzea, esaterako- egotea ekintza piromanoaren atzean, eta mundu guztiak sinetsi zion, **asegurua** kobratu nahi izan balu bestela jokatuko zuela konprenituz. Jon Alonso

Batetik bestera ibiltzen naiz **asegurua** estaltzeko. Javi Cillero

Ispiluaren aurrez aurre... **asegurua** kendu... isiltasun ankerrak dena irentsi du, **aseguruaren** soinu metalikoa ozen belarriaren gainean, KLAK! besterik ez... Sonia Gonzalez

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Roberts jauna, alaia, fama txarreko gizon heldua, **aseguru** konpainia bateko diru kobratzailea zen. Koro Navarro

-Gertaeren parte bat **aseguru** konpainiaren esku dago. Xabier Olarra

Gure enplegatuek ez dute banakako fiantzarik, badago talde-fiantza bat, **aseguru** konpainiarekin hitzartua. Xabier Olarra

Aseguru agentea: Jauna, hauxe etxe bikaina, aseguratuko dizut. Xabier Olarra

Aseguru -agente onak gauza izan behar du bere burua defendatzeko bezeroekin eztabaida zail bihurriak sortzen direnean, sarri gertatu ohi denez. Oskar Arana

Aseguru -elkarte bati astero diru-kopuru txiki bat ordainduz, ehun liberako ezkonsaria ziurtatzen zion bi alabetako bakoitzari hogeita lau urte betetzen zituenerako. Irene Aldasoro

Truke-tasen aldaketa arriskurik ez dagoenez, ez dira arrisku horiek **aseguru** primak ordainduz babestu behar. Iñaki Heras

Hogeita zortzi urteko haren hirugarren emazte Maureen-ek eskuratu zuen milioi bat eta seiehun mila dolarreko **aseguru** -poliza. Oskar Arana

Eta horrela dagoenetan bere karreran pentsatu ohi du, banitate malenkoniatsuz beterik: zortzi mila dolar garbi desfileko, bidaiak eta **aseguru** -poliza aparte utzita. Patxi Iturritegi

Ez dakit **aseguru** -polizetan sarraskiak ere sartzen ote diren. Oskar Arana

Mendebaldeko gizakiak giza izaera ez duten legeek bere arazoetan zuten eragina aldatzen izandako arrakasta **aseguru** -sarien kuotek izandako murrizketan geratu zen jasota. Iñaki Mendiguren

Metro batzuk atondu nituen liburutegirako eta lerrotan ordenatu nituen gurasoek denboraren joanean gorde zituzten kutxak, dosierrak eta karpetak: posta eta oroigarriak, banku-agiri, telefono eta argi fakturak, **aseguru** -prima edo zerga-inprimakien aldakien ondo-ondoan. Joxan Elosegi

Baliabide urrien zuten familientzat, **aseguru** -politika berri bat aurreikusten nuen, zeinaren bidez hilero edo lau hilero diru-kopuru txiki bat bereizteko aukera izango baitzuten liburuaren gastuak ordaintzeko. Oskar Arana

Laxaro, **aseguru** saltzailea. Pablo Sastre

Abdul gauza asko izan zen bere bizitzan: suhiltzaile, porno aktorea, gigolo, postari, organista, **aseguru** -saltzaile, bortxatzaile, poeta, exhibizionista, diseinatzaile, maisu... Karlos Linazasoro

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez etxe-**asegururik** ez bizitza-**asegururik** , baizik eta biografia-**asegurua** . Oskar Arana

Bizitza-**aseguruak** saltzea ez da langintza pasiorik gabea. Oskar Arana

Ezin dituzu nik bezala bizitza-**aseguruak** arrakastaz saldu bezeroak uxatzen badituzu, ez behintzat hogeita hamar urte luzean. Oskar Arana

Baldin eta ezin bazen bat bera baztertu, zerk eragozten zion hirurogei urteko bizitza-**aseguruen** saltzaile ohi bati haien arteko lerroetara sartzea? Oskar Arana

Baldin eta ezin bazen bat bera baztertu, zerk eragozten zion hirurogei urteko bizitza-**aseguruen** saltzaile ohi bati haien arteko lerroetara sartzea? Oskar Arana

Bizi-**asegurua** giza gorputzaren probabilitateekin lotua zegoen, eta fisiologia zientziaren eremuan sartzen zen argi eta garbi. Iñaki Mendiguren

Bizi-**aseguru** bikaina egin nuen dolarretan, eta hari eman nion poliza. Karlos Zabala

Orain maitasuna besterik ez zitzaidan gelditzen; maitasun horretatik lekutuak ziren laguntza-eskeak eta babes-**aseguruak** ; eta areago, ohartzen nintzen beharbada etorkizunean neronek defendatu beharko nuela bera, nik eman behar niola babesa, ama ordurako adintsua zelako, gogoz arras eroria, babesgabea. Fernando Rey

Alta, suhiltzaileek ez dute Gizarte Segurantzak eskaintzen duen jubilazio handiena jasoko, eta dituzten bizitza eta istripu **aseguroak** hobetzeari uko egin diote. Berria - Ekonomia

Itsas **aseguruko** sozietateek, Europako portu handi guztietan sortu zirelarik, abantaila handiak eman zizkioten itsas merkataritzari. Koro Navarro

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Aseguru on baten babesik ez zeukalako. Bernardo Atxaga

AEBetan 41 milioi biztanle omen dago **aseguru** medikurik gabe. Iñaki Heras

5 *aseguru-etxe* *(orobat **aseguruetxe** g.er.)* aseguruak kudeatzen dituen etxea.

Herenegun iluntzean hainbat kaputxadunek Getxoko Tellagorri plazan dagoen **aseguru etxe** baten bulegoari eraso zioten. Berria - Euskal Herria

Inbertsio funts, pentsio funts eta **aseguru-etxe** handiek mugitzen duten dirutza osoa 21 bilioi dolar ingurukoa dela kalkulatzen da (1998rako datuak dira, Ordainketak Berdintzeko Nazioarteko Bankuarenak hauek ere). Iñaki Heras

Liberty **Aseguru etxeak** hartu du Once-Eroskiren lekukoa, berarekin atxikiz bereziki Galdeano anaiak, Koldo Gil, Isidro Nazal, kirol zuzendari ukanen dutelarik Manolo Saiz. Herria

Aseguru-etxeak giza arazoen erregulartasun kalkulagarrian oinarritzen dira. Iñaki Mendiguren

Hogeita hamaika urte igaroak nituen egunero aldirietatik Mid-Atlantic Accident and Life **aseguru-etxearen** bulegoetara joan-etorrian, eta, orain, jada lanik edukiko ez nuelarik, ordu gehiegi zeuzkan egunak. Oskar Arana

1907ko urriaren 1ean hasi zen Assicurazioni Generali izeneko **aseguru etxean** lanean. Pedro Alberdi

Polita **aseguru-etxeen** metafora jubilatuen hiri batean: mesfidantza omen da segurtasunaren motore. Anjel Lertxundi

Zergatik saiatzen zen mundu guztia -traumatologoak, **aseguru-etxeko** ikuskatzailea, trafikoko begiralea, Ada bera... - nik ikusitakoa ukatzen? Anjel Lertxundi

Juan Etxebarria (Bilbo, 1875-Madril, 1931) margolariaren 70 lan jaso, eta Mafre Vida Fundazioarekin elkarlanean, margolari bilbotarrari buruzko erakusketa antologikoa apailatu du Bilboko Arte Eder museoak, **aseguruetxeak** Madrilen duen kultura aretoan. Berria - Kultura

Azkenean, argazki batzuk eta guzti atera genituen **aseguruetxekoei** erakusteko. Joxemari Urteaga

6 *arrisku orotako aseguru* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Adibidez, ez dauka zentzurik urte dezente dituen auto batekin **arrisku orotako asegurua** kontratatzeak eta, berri batekin, berriz, ia ezer babesten ez duen bat. ETC-prentsa

Furgonetak bi urte baino pixka bat gehiago daukanez, **arrisku orotako asegurua** kontratatuta izan arren, aseguru-etxeak ez digu furgoneta bat emango. ETC-prentsa

Ibilgailuak bi urte baino gutxiago baditu, **arrisku orotako asegurua** eskatzen dute. ETC-prentsa

"Une honetan, gainera, **arrisku orotako asegurua** frankiziarekin eskaintzen dugun bakarrak gara merkatuan", gaineratu du Urrutiak. ETC-prentsa

7 *aseguru-artekari* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Oro har, izaki behartsu eta inutilak gara, hortaz behar ditugu ezkontza paratzaileak, dibortzio aholkulariak, **aseguru artekariak**, dibertsioaren profesionalak, ehorzketa prestatzaileak eta abar. ETC-prentsa

Aseguru artekari lanetan aritzeko baimena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Asegurua sinatzerakoan Barryk **aseguru-artekariari** garbi esan ziola ziurtatzen du Maryk, baina artekariak ez zuen oharretan adierazi, antza. ETC-literatura, saiakera

8 *aseguru etiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aseguru etiko eta solidarioak eskaintzen dituen Ars kooperatibako kide eta sortzaile naiz, eta urte horiek guztiek beste gauza askotarako ere eman dute: Kataluniako ekonomia sozial eta eraldatzaileko sarea (XES) sustatzen buru-belarri aritzeko, adibidez. ETC-prentsa

9 *aseguru-konpainia*

Unespa patronala, Espainiako zortzi **aseguru konpainia** handienak eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusia bi orduz bilduta egon ziren atzo goizean Madrilen. Berria - Ekonomia

Aseguru Konpainia Nazionaleko buru, Merkataritza ministro, Segurtasun Kontseiluko idazkariorde eta Polizia Fiskalaren zuzendari izan zen, besteak beste. Berria - Mundua

Aseguru konpainiarekiko nahaste-borrastea konpondua zen, baina ez zidaten esan lanera itzultzeko eta ez nuen espero horrelakorik gertatzerik. Xabier Olarra

Nahikoa lan zuen hark bere bizkarreko minekin, **aseguru konpainiarekiko** lehiarekin. Iñaki Iñurrieta

Roberts jauna, alaia, fama txarreko gizon heldua, **aseguru konpainia** bateko diru kobratzailea zen; lankideek hilobi profanatzaile esaten zioten, eta "Burke eta Hare, gales nazionalista", deitzen zioten adiskideek. Koro Navarro

Espainiak Nepalen duen kontsulatuak eman zion heriotzaren berri Broker's aseguru etxeari, Euskal Mendi Federazioaren **aseguru konpainiari**, eta haiek, Euskal Mendizale Federazioko Ramon Garate medikuari, hain zuzen ere. Berria - Kirola

Nabarmenena, Osakidetzako 63 medikuk osasun sistema publikoan bakarrik lan egiteagatik aurreikusitako dirua kobratu dutela, baina **aseguru konpainia** pribatuentzat ere lan egiten zuten. Berria - Euskal Herria

10 *aseguru-poliza*

Hogeita zortzi urteko haren hirugarren emazte Maureen-ek eskuratu zuen milioi bat eta seiehun mila dolarreko **aseguru-poliza**, eta gero, hilabete bat besterik igaro ez zelarik, Manhattango pisua saldu eta desagertu egin zen. Oskar Arana

Langabetuak bultzatuko ditu familiaren ondasunak eta **aseguru polizak** erabiltzera beren ongizateari eusteko. Berria - Mundua

Pentsa, behin **aseguru-poliza** batez hitz egin zuen, esanez haren dirua, berari ezer gertatuz gero, Mariarentzat izango zela. Edorta Jimenez

Eta horrela dagoenetan bere karreran pentsatu ohi du, banitate malenkoniatsuz beterik: zortzi mila dolar garbi desfileko, bidaiak eta **aseguru-poliza** aparte utzita. Patxi Iturritegi

Denera, 185 milioi euroko **aseguru polizak** kontratatu dituzte. Berria - Kultura

11 *aseguru sozial* *(corpusean ez dago; ETCn **34** agerraldi)*

Frantziako **Aseguru Sozialen** sortzaileetako baten alaba izaki, doktoreak badaki zertaz ari den. ETC-prentsa

Europako **aseguru soziala** bera ere ez al da neurri batean konponketa ziniko bat? ETC-prentsa

Finantza-kapitalismo modernoak lan-indarra ustiatzeko bide berria aurkitu du, pentsio-fondoak, **aseguru soziala** eta beste erretiro fondoak mobilizatuz, burtsa-merkatu, bono- eta higiezin errealeko prezioak altxatzeko. ETC-prentsa

Osasuna oinarrizko eskubidetzat jo eta horretarako **aseguru sozialaz** mintzo zen. ETC-prentsa

Hori da gure borroka: emakume horientzat **aseguru soziala** lortu, kondoiak, lan-tresna moduan, merkeago izan ditzatela, eta beste mila kontu. ETC-prentsa

AEBetako presidentetarako kanpainan, Ralph Nader independienteak gauza garrantzizkoak aipatu ditu: enpresa erraldoiek gobernuaren gain duten eragina kontrolatu beharra, Iraketik erretiratzea, **aseguru soziala** unibertsalizatzea, ingurumena zaintzen konprometitzea... ETC-prentsa

Nire bizkarrean baditut hirurogei urtetik gora, hemezortzirekin hasi nintzen lanean eta **Aseguru Sozialean** kotizatu dudan guztia Espainiakoan ordaindu dut. ETC-prentsa

Alderdi Demokratikoak gotorleku politiko bat sortu zuen, eta 30eko hamarkadaz geroztiko administrazio berri guztiak New Deal-ak **aseguru sozialean** egindakoaren muina ez ukitzera behartuta sentitu zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azken horien bitartez, lehenengo **aseguru sozialak** martxan jartzen dira gaixotasun, istripu edota zahartzaroaren arriskuak ekidin ahal izateko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egingarria gerta daiteke **aseguru sozialeko** abarretakoren batekin, gutxienez, integratzea. ETC-literatura, saiakera

12 *bizi-aseguru*

Bizi-asegurua giza gorputzaren probabilitateekin lotua zegoen, eta fisiologia zientziaren eremuan sartzen zen argi eta garbi. Iñaki Mendiguren

Bizi-aseguru bikaina egin nuen dolarretan, eta hari eman nion poliza. Karlos Zabala

Gordailu interesak, akzio eta dibidenduak, kapital itzulketak, finantza aukerak, inbertsio funtsak, pentsio funtsak, errenta finko publiko edo pribatua, **bizi asegurua** duten unit link delakoak... zerga trataera ezberdina duten tresna gehitxo. Berria - Ekonomia

Herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza dela-eta sortutako ondasun eta eskubideen eskurapenak, heriotza dela-eta **bizi aseguruen** kontratuen onuradunek egindakoak barne. Iñaki Heras

(Aipatu beharrik ere ez dago aseguru saltzailerik onenak zirela antzina bizarginak, bizar-labana zorrozten zuten bitartean galdetzen zutela, "**bizi asegururik** ba ote duzu?

Harkaitz Cano

13 *bizitza-aseguru*

Ez etxe-asegururik ez **bizitza-asegururik**, baizik eta biografia-asegurua. Oskar Arana

Halaz guztiz ere, **bizitza-aseguruen** tarifak finkatzerakoan madarikatzearen kalteordaina garrantzi gutxiko kontua da. Xabier Olarra

Fernando Goñi, berriz, atzean **bizitza aseguru** baten modukoa da. Berria - Kirola

14 *derrigorrezko aseguru*

Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko **Derrigorrezko Aseguruko** pentsiodunak ere lege-proiektuaren barnean sartzea eskatu zuten Aralarrek, PSNek eta NEBk, baina hori ere atzera bota zuten UPNk eta CDNk. Berria - Ekonomia

15 *eritasun aseguru*

g **Eritasun asegurua** : Gizarte Segurantzaren zor handia gutxitzeko balio izan dezake **eritasun aseguruari** buruz abiatuko den negoziazioak. Berria - Ekonomia

Eritasun aseguruaren sistemaren mantentzea galdegin zuten sindikatu guztiek. Berria - Euskal Herria

16 *gaixotasun aseguru*

Galera horiek **gaixotasun-aseguruari** zor dizkio, adar horrek 11,9 miliar euroko defizita pilatu baitzuen 2003an, aurreko urtekoaren halako bi. Berria - Ekonomia

Izan ere, **gaixotasun aseguru** kutxari esker dohainik eskuratzen dute txertoa hauek. Berria - Harian

Horretaz gain, zerga politikaren inguruko kontuak, osasun sistemaren egoera eta **gaixotasun aseguru** orokorra finantzatzeko arazoak izan dira gai nagusiak. Berria - Mundua

Pribatizazioen eta **gaixotasun aseguruen** erreformaren aitzinean, ez mobilizatzea leporatu die. Berria - Euskal Herria

17 *lapurreta aseguru*

'Garrasia' eta 'Madonna' lanek ez zuten **lapurreta asegururik** Munchen lan ezagunentzat erreskatea eskatuko dute, Poliziaren ustez. Berria - Kultura

18 *nahitaezko aseguru* *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi)*

65 urte azpiko erretiratuei, 65 urte azpiko alargunei eta SOVI Zahar eta Elbarrientzako **Nahitaezko Asegurua** dutenei (egun amaitua) gutxieneko pentsioa igoko zaie. ETC-prentsa

Izan ere, 65 urtez azpiko erretiratuen, alargunen eta SOVI Zahar eta Elbarrientzako **Nahitaezko Asegurua** dutenen gutxieneko pentsioaren igoera %3,5ekoa izango dela zehaztu dute. ETC-prentsa

9089 BL matrikuladuna, ez zen berea, Antonio F.rena baizik, baina azken honen adostasunarekin eta **nahitaezko aseguruarekin** erabiltzen ari zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ibilgailu motordunak aseguratzeko beharra ez betetzea edo ibilgailuak **nahitaezko asegurua** baduela egiaztatzen duen dokumentazioa ez aurkeztea arau-haustea izango da, eta berariazko legeriaren arabera arautu eta zehatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Norbaitzuek legearen arabera erantzukizun zibileko **nahitaezko aseguruak** behar dituzten jarduerak aseguruok izan gabe egiten badituzte, orduan, halakoei hilabetetik bi arteko isun-zigorra ezarriko zaie. ETC-zientzia, zuzenbidea

Epaitutako egitateak ibilgailu motordunen erabilera eta zirkulazioaren ondoriozkoak direnean, gidariek egindako lehenengo adierazpenean aipa tuko dira, halaber, haien gidabaimenak, zirkulaziobaimenak eta **nahitaezko aseguruaren** ziurtagiria eman ditzaten, bai eta horren indarraldia egiaztatzen duen agiria ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ibilgailu Motordunen erabilera eta zirkulaziotik eratorritako erantzukizun zibilaren gaineko **nahitaezko aseguruaz** estalitako egitateek sortutako kalteei buruz, IMZEZALko 10. artikuluak zera ezarri du: ETC-zientzia, zuzenbidea

19 *sute aseguru* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Horrez gain, asegurua harpidetu eta indarrean iraunarazi behar du, bizitegia erabiltzen duten okupatzaileek horiek erabiltzean eragin dezaketen erantzukizun zibila estaltzeko, baita **sute-asegurua** eta eraikinaren edo instalazio eta ekipoen multzoan eragindako bestelako kalte orokorren asegurua ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haiek betez gero, aseguru-etxeek deskontuak egiten dituzte **sute-aseguruen** prezioetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hipoteka lor al dezaket nire **sute-aseguruaren** gainean? ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aseguru agentea (10); **aseguru bat** (8); **aseguru etxe batek** (3); **aseguru etxea** (6); **aseguru etxean** (5); **aseguru etxearekin** (3); **aseguru etxearen** (8); **aseguru etxeari** (7); **aseguru etxeek ez** (5); **aseguru etxeek garabi** (3); **aseguru etxeekin** (9); **aseguru etxeen arteko** (3); **aseguru etxeen patronala** (5); **aseguru etxeen patronalak** (7); **aseguru etxeetako** (7); **aseguru etxeetara** (3); **aseguru etxeko** (7); **aseguru konpainia** (6); **aseguru konpainiak** (4); **aseguru konpainiarekin** (3); **aseguru konpainien** (3); **aseguru poliza** (4); **aseguru saltzaile** (4); **baina aseguru** (3); **da aseguru** (4); **dago aseguru** (4); **diete aseguru etxeei** (5); **dira aseguru** (3); **dute aseguru** (5); **enpresak eta aseguru** (3); **enpresen eta aseguru** (3)

langabezia asegurua (3); **lurrikaren kontrako asegurua** (3)

bizitza aseguruak (3)

osasun aseguruaren (3)

asegururik ez (7)

---

asegurudun *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)* *iz* aseguru bat duen pertsona. ik **aseguratu 2**.

Eta hori baino gehiago kontatu ere: **asegurudunak** zordunduta daudela, eta burokraziaren alfonbra gorriak itota. ETC-prentsa

Asegurudunak medikuarengana joan beharra badu, ahal duten guztia egingo dute faktura ez ordaintzeko, bai haren osasun historian poliza eteteko motibo txikiena ere bilatuz, bai bezeroa nahastuz... ETC-prentsa

Aldiz, brok egin duten amerikar gehienek bazituzten aseguruak, baina hauetan ere hainbat gaitz larriren kasuetan **asegurudunak** berak pagatu behar ditu medikuak eta botikak, zati bat edo osorik. ETC-prentsa

Prezioan honakoak sartzen dira: autobusa, afaria, lo egitea, gosaltzea eta **asegurudun** forfaita. ETC-prentsa

Bestalde, elkarteek azaldu dute "**asegurudunak**" eta "onuradunak" ziren pertsona batzuei ere osasun sistema ukatuko diela osasun sistemaren erreformak. ETC-prentsa

Espainiako Osasun Ministerioak baieztatu egin zuen atzo "hitzarmenak" egingo dituela osasun sistema publikoaren "**asegurudunak** edo onuradunak" ez diren pertsonekin. ETC-prentsa

Salatu dute "atzeranzko neurriak" hartu dituela PPk, "**asegurudunen** sistema" delakoan ezarri duena. ETC-prentsa

Aseguratzaileek, **asegurudunen** ondasunen gain, 196. artikuluan zehazturiko kasuan eta lege honek agindutako beste edozein kasutan ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Asegurudunek eta eskubidedunek, nahitaezko Gizarte Segurantzarako eta horren onurak hartzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erantzukizun zibileko aseguruarekin, legean eta kontratuan ezartzen diren mugen barnean, aseguratzailea behartzen da **asegurudunaren** gain hirugarren bati kalte-galerak ordaintzeko betebeharra jaiotzeko arriskua babestera, betiere kalte horien egitate kausatzailea kontratuan aurreikusita badago eta, Zuzenbidearen arabera, **asegurudunari** egotz badakioke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gure herrialdean, 60ko hamarkadatik aurrera gertatu ziren aldaketa horiek, gutxika bide eginez ordainpeko eta ongintzako asistentzia mediko batetik asistentziasistema publiko eta mediku-**asegurudun** batera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aseguru-konpainiak dira, eta haien bazkideen edo **asegurudunen** osasunarekin loturiko arriskuei estaldura eskaintzea da bere enpresa-jardueraren ardatza ETC-entziklopedia

---

aseguruetxe *iz* ik **aseguru 5**.

asegurugile *iz* aseguruak egiten dituen pertsona.

Aretoa berehala bete zen, eta **asegurugileak** bere lehen hitzak osatu zituen entzule guztiak ondo kokatu eta isildu zirenean: [...]. Bernardo Atxaga

Eta handik aurrera nirekin egon zen beti **asegurugilearen** "ondo gogoratzeko tresna", eta Ameriketara etorri nintzenean hura izan zen maletan sartu nuen lehenengoetako gauza. Bernardo Atxaga

Aretoa berehala bete zen, eta **asegurugileak** bere lehen hitzak osatu zituen entzule guztiak ondo kokatu eta isildu zirenean: "Sua gauza handia da berez, jaun-andreak". Bernardo Atxaga

---

aseka *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) adlag* asebeterik, aserik.

Eskalea ezin **aseka** ari den artean, Diesse jaun merarenganat jo du zuzen Anettak, ostatuan desertore bat dutela salatzeko. ETC-literatura, saiakera

Nolanahi ere, ni pozik nengoke joan baledi, ezen gau batean **aseka** ez bada, bestean intzirika eta oihuka, lagunarekin ziriko egiten dutenean ezin dut lorik egin. ETC-literatura, saiakera

---

asekaitz *izond* erraz asetzen ez dena.

Idazteko grina sutsu eta **asekaitz** bat eragin izan dit beti folio zuriak. Pako Aristi

Ia gu bezain ibiliak izanagatik, oraino atxikitzen dute gaztetasunaren funtsa omen den ezinegona, dena eta berehala lortzeko grina **asekaitza**. Xabier Montoia

Menpekoarengan gorroto **asekaitza** ernarazten, behinik behin, maisuak dira biak ala biak. Hasier Etxeberria

Emaztearekin bizi nintzenekoan, funtsean, **asekaitz** eta ongi ezak nindabilen, baina behintzat banuen nondik ihes egin, norat joan. Jose Angel Irigaray

Zaborrontzien erreinuaren jabe egin ziren, berriro ere, katu gautiar eta **asekaitzak**. Joxemari Urteaga

Afrika aldetik etorritako oti berde edo matxinsalto handi **asekaitz** horien multzo hodeitsuak. Pello Zabala

Denboraz gaindi den orori lotzen zaion herdoila bera baino gaitz **asekaitzagoa** da tribializazioa. Anjel Lertxundi

· Eta **asekaitz**, asiriarrekin ere prostituzioan jardun zenuen; baina, halere, ez zinen ase. Elizen arteko biblia

---

asekaiztasun *iz* asekaitza denaren nolakotasuna.

Iduritzen zaio idatziz bakarrik berdindu dezakeela bere **asekaiztasuna**. Jose Angel Irigaray

---

asentaerraz *izond* erraz asentatzen dena.

Ez da izan, ez, ipurdi **asentaerraza**. Joxemari Urteaga

---

asentamendu *(orobat **asentamentu** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kokagune**, **kokaleku** eta **kokatze** agertzen dira)* **1** *iz* asentatzea; norbait edo zerbait asentatzen den tokia.

Eta ibaian aitzina gindoazen, aitzina eta aitzina, harik eta kaputxinoen **asentamendu** haietarik batekin inkontratu ginen arte. Joan Mari Irigoien

Asentamentu horietako gutxi batzutan dute, adibidez, ur edangarria. Berria - Gaiak

Yehuda Aimanrat kolonoaren arabera, behin **asentamentuak** husten hasiz gero, ez da egongo atzera egiteko aukerarik. Berria - Mundua

Zeren baitzirudien ezen bai kaputxinoak eta bai frantziskotarrak ere ibaia kolonizatu nahian zebiltzala, eta fundatu ere fundatu zituztela ur-bazterrean, hartarakotz, hainbat misione eta **asentamendu**, zeinetarik Santo Tomásekoa baitzen zaharrena eta inportantena. Joan Mari Irigoien

Giza **asentamenduen** kokapen ekologikoa ez dator bat kokapen geografikoarekin. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eta jakizu, bertzetik, ezen, Potosirat joan gabe ere, badirela Santo Tomáseko **asentamenduaren** ondoan etxaldeak edo haziendak, batik bat behi-aziendaren hazkuntzari emanak eta zureak bezalako beso indartsuen beharrean daudenak, beren ondasunen begiratzeko eta ordenaren ezartzeko, eta nagusi haietarik bati eskain diezazkiokezula zeure zerbitzuak eta endrezuak. Joan Mari Irigoien

Eslovakian, adibidez, **asentamenduetan** bizi diren erromaniek ez dute hirira autobusean joaterik. Berria - Gaiak

Giza **asentamenduetan** eta urbanizazioan plangintza aplikatu behar da, ingurumenaren gaineko ondorio kaltegarriak saihestu eta denontzako gizarte, ekonomi eta ingurumen mailako onurarik handienak eskuratzera begira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

2 (hitz elkartuetan)

Asentamendu sare integratu bat osatzea eta landa inguruetatik hiri inguruetarako migraziora maila minimora jaistea jasotzen zuen adierazpenak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Kalahari Erdiko Ehiza Erreserba (Botswana, Afrika) eta boskimanoen **asentamendu** leku berriak bisitatuko ditu gaur epaileak. Berria - Gaiak

---

asentamentu ik **asentamendu**.

---

asentatu, asenta(tu), asentatzen **1** da/du *ad* pertsona bat edo talde bat toki edo lurralde batean kokatu; zerbait edo norbait irmoki kokatu.

Esaten da trikitia burdinbideak egitera etorri ziren langile italiarrek ekarri zutela XIX. mende bukaeran, eta poliki-poliki gure kulturan **asentatu** zela. Pako Aristi

Eta behin lehorrean oinak **asentatu** eta gero, filologoa, arrantzako gauzak alde batera utzi eta filologo gisa hasten da mintzatzen. Iñaki Segurola

Asentatuak gaude, baina zenbat aztoramen! Dakizun bezala, aspalditik neukan buruan zein zen nahi nuen etxea. Ramon Etxezarreta

Opus incertum izenekoak, harriak bata bestearen gainean **asentatuz** eta elkarren artean trabatuz, egitura ez hain dotorea baina erretikulatua baino sendoagoa ematen du. Santiago Iruretagoiena

Hirukoa primeran **asentatu** zen kantxan. Berria - Kirola

Grekoen artean opai esaten zaie habeak eta gapirioak **asentatzen** direneko bermeguneei, gure artean *cava columbaria* (uso-zuloak) esaten zaien bitartean. Santiago Iruretagoiena

"Asentatzea" deitzen diote, edo "arrastoan sartzea", "heldutasunera iristea" (edo "oreka batera"), "bizimodua hartzea" (denok dakigu zertaz ari garen, eta termodinamikaz eta entropiaz zerbait ikasi badugu, gehiago). Iñaki Segurola

· Ametsetako aginduak eguzkiaren keinuak, eguraldia ezin **asentatu**. Pello Zabala

Artikulugintzan hasi, antzerkigintzan jarraitu eta zinemagintzan **asentatutako** ibilbide osoa hartzen duen ardatza. Berria - Kultura

2 irud/hed organismoaren edo kidekoen zati bat bere onera etorri edo etorrarazi.

Barkatuko didazu denbora honetan idatzi ez izana, baina zuenetik abiatu eta nire burua **asentatu** arte inori ezer ez jakinaraztea erabaki nuen. Joxemari Urteaga

Postreen ondoren kopa bat armagnac eskatu zuen Jontxuk, "afaria **asentatzeko"**, bere hitzetan; urteetan frijoleen dietara ohitutako nire urdailak benetan zeukan asentatu

beharra, eta kamamila eskatu nuen neuretzat. Xabier Mendiguren Elizegi

Janariren bat gustatzen ez zitzaionean, kalte egiten ziola esaten zuen, eta gaizki **asentatzen** zitzaiola urdailean, baina gustatzen bazitzaion esaten zuen on egiten zuela eta "peristaltismoa bizitzen zuela". Fernando Rey

Neguan hiria bere esku lainotsuez hartzen duen itsasoak, udan gatz ihintzaz etxeak oro bustitzen dituen itsasoak ere lagundu du hiriaren oinarriak **asentatzen** eta indartzen, itsasorik gabe ez bailegoke hiririk, edo hobe esan ez litzateke ezagutzen den hiri gorri kolorea izango. Felipe Juaristi

3 (era burutua izenondo gisa)

Esaten du giza enda ez dela espezie **asentatu** bat, baina teoriari ez dio bermerik ipintzen. Karlos Linazasoro

---

asentatzaile *iz* adierazten dena asentatzen duena.

Ez espanti beraz, berdin Ordena gehienetako **asentatzaileek** eta lehenbiziko buruzagiek esku-lana manatu badiote beren haurreri. Xipri Arbelbide

---

asentsio **1** *iz* usain gozoko landare mikatza *(Artemisia absinthium)*.

Gainera, bere gorputzetik usain bizia botatzen duen edozer, panazea, **asentsio** higuingarria, errosta gogorra edo astuzker mingotsa, hauetariko edozein bi hatzen artean estutzen baduzu, ikusiko duzu nolako usaina ateratzen duen. Xabier Amuriza

2 ***asentsio-belar***

Zer lortuko nuke anbulu zurien sustrai-hautsa **asentsio** -belarraren egoskinari erantsiko banio? Iñaki Mendiguren

Izarrak **asentsio** -belar du izena; uren herena **asentsio** -belarra bezain mingots bihurtu zen, eta gizon-emakume asko hil zen ur haiek edateagatik. Elizen arteko biblia

Ez dirudi gainera arrazoigabea denik, zeren aitzitzik medikuek ere, haurrei **asentsio** belar higuingarria eman nahi dietenean, edontzi ertzak ezti likore gozoz eta beilegiz gantzutzen dituzten bezala, haurren adin xaloa ezpainetan bada ere engainatzeko [...]. Xabier Amuriza

---

asentu **1** *iz* oinarria, zimendua.

Zein da aitaren etxea, nolakoak ditu egitura, **asentua** eta neurriak? Anjel Lertxundi

Teatroa mendi baten maldan baldin badago, zimenduak egitea errazagoa izango da; baina halabeharrez leku ordekan edo zingiratsuan eraiki beharra gertatzen bada, **asentuak** eta lurpeko egiturak sendo egin beharko dira, hemen ere hirugarren liburuan tenpluen zimenduei buruz esandakoak jarraituz. Santiago Iruretagoiena

Arriskugarria da, ordea, **asentu** eder handiko etxearen babes gehiegia, etxezuloegi bihurtzen baikaitu. Anjel Lertxundi

Jauregi trazako **asentu** ederreko etxe bat zen. Anjel Lertxundi

Janbak jartzen direnean azpitik eta falka bidez finkatzen direnean, habeak **asenturik** ez izatea lortzen da eta gainean kargarik ez izatea. Santiago Iruretagoiena

2 eserlekua.

Fermin errenditurik etzan zen **asentuaren** errespaldoaren kontra, iraganeko mamuak bisaian. Berria - Kultura

---

asepsia *iz* infekzioa eragin dezaketen germenen absentzia.

Haragi eta koipe ustelduzko giro horretan **asepsia** zaila dela jakinik, neurri higieniko bereziak aginduko dituzu. Joseba Sarrionandia

Ez zuten lekurik, gisako albiste batek egunkarian behar duen **asepsia** koloregabean. Aingeru Epaltza

Zenduak hilkutxan daude ongien, beila-lekuko **asepsia** distiratsuan. Karlos Linazasoro

Pentsamendu maskulinoan, ostera, **asepsia** handiagoa dago; elementu sentsorialek ez dute eragiten neurri berean. Ana Urkiza

Zauria ongi garbitu eta bendatu arren, leku horretan **asepsia** ezinezkoa izanen da. Joseba Sarrionandia

---

aseptiko **1** *izond* asepsiari dagokiona, infekzio bat eragin dezaken germenik ez duena.

Lokutorioak ez ziren hain **aseptikoak** : ez zirudien garbitzeko ahalegin handirik egiten zutenik. Iban Zaldua

Kartzela berria zen, **aseptikoa** , dena ertz eta angelu zuzenak. Iban Zaldua

Haurretako gozo urrin zorabiagarria ere modernitateak eramana zuen, girotzaile **aseptikoaren** mesede. Aingeru Epaltza

Hipermerkatu eta parke teknologikoetako plastikozko garbi, zuriak, kalitate gabeko janari **aseptikoa** dutenak. Edorta Agirre

Hildakoen izara **aseptiko** bat. Koldo Izagirre

2 irud/hed

Geroztik, -erran nahi baita Giuliani gure alkate maiteak Manhattan epe ertainera etxeorratzez eta jende aberatsez betetako metropoli **aseptiko** bihurtu nahi duenetik- gauzak asko aldatu dira. Harkaitz Cano

Nik neuk ere ez nuen atsegin areto **aseptiko** eta isil hura; biok bakarrik geundenean ere, iruditzen zitzaidan norbait zelatan geneukala. Juan Kruz Igerabide

Diru politika ez da ekuazio konplexu eta tekniko baten ebazpenaz zehazten den zientzia **aseptikoa** , ekonomiarekin oro har gertatzen den legez. Iñaki Heras

Heziketa sexual **aseptikoa** , kontrolatua eta guztiz "zientifikoa". Luis Elberdin

Nire idazlanen azpian jartzen zituen ohar gehienetan **aseptikoak** ziren hurbilketa bakarra. Anjel Lertxundi

Egunerokotasunaren poderioz sufrimendua egoera normala iruditzen zaionaren ohituraz mugitu da, uniformea bezain **aseptiko** . Eider Rodriguez

Esaldi zikin-estalia, odol-estalia, gaitz-estalia: esaldi estalia, bere garbitasun **aseptiko** bihozgabean okaztagarri. Iñaki Segurola

Hartu berripapera, joan sailez sail aurrera, eta tituluak irakurriz, hor begiztatzen da nolabaiteko estilorik, **aseptikoa** gehienetan, orekatua, denotatiboa. Iñigo Aranbarri

Baina hizkerak bai, harritu ninduen, eta asko, euskaraz ere ez zuelako "titi" erabiltzen; "bularra" esaten zuen, **aseptikoago** delako nik uste. Ramon Saizarbitoria

Gela modernoa zen, formikazko panel zuri asko zituena, kolore bereko lanparak ere ugari -globo formakoak, esango nuke-; nasaia eta **aseptikoa** , oker ez banago. Ramon Saizarbitoria

Kamara frigorifiko zilarreztatu eta **aseptikoak** han eta hemen, haragi fresko eta hilberria ezkutatuz. Harkaitz Cano

Periodistikoki zuzena, **aseptikoa** , burutapen eta iritzirik aipatu gabe; objektiboa, alegia. Unai Iturriaga

Ministroa ongi kalkulaturiko tonu **aseptikoaz** mintzatu zen oraingoan, ondorengo hau esateko: Zoritxarrez, gauzak ez dira hain erabaki errazak. Jon Alonso

Duda eta pentsamendu lerrakorra ukan dezakezu edozein gaitan, eszeptiko **aseptikoek** nola. Itxaro Borda

Hori behintzat jakin dezatela hasterako euskarazaintzaile zurrunek: nahita eginak direla, alegia, akats batzuk, ez hiztegi eta gramatika garbiaren kaltetan propio, baina bai literatur adierazkortasun askotan ez hain **aseptikoaren** beharretara makurtuz. Juan Garzia

---

aseptikotasun *iz* aseptikoa denaren nolakotasuna.

Aurkezpen polita, anoa txikiak, baxera abangoardistan, **aseptikotasunerainoko** higienea hamaika bilgarritan babestua, nutrizio aldetik perfektuki orekatua, kromatismo, zapore eta usain erakargarrikoa... prezioak prezio, jakiari erantsitako balioa intrintsekoak baino garrantzitsuagoa izango baita. Edorta Agirre

Fikzioa erreibindikatzeko aitzakiaz, konpromezuaren aurkako **aseptikotasun** alderotu halako bat estaltzen duen kritikak literaturgintza biografikoegiaren leloarekin gaiztatu

zuen Leviri buruzko iritzi mediatikoa. Juan Garzia

---

asertibo *izond* baieztatzeko balio duena, baiezpena adierazten duena.

Baina, gainera, legeak, zientziaren unitate **asertibo** txikiena denez, zer dio munduaz? Askoren artean

---

asertibotasun *(corpusean ez dago; ETCn **41** agerraldi) iz* asertibo izatearen nolakotasuna.

Giza harremanetan, **asertibotasuna** pertsona batek besteak erasotu gabe edota besteekiko menpekotasuna erakutsi gabe jokatzen duen gaitasuna da. ETC-entziklopedia

Nire kasuan, behintzat, horrela izan da: urrats erabakigarria egin nuen euskara erabiltzea gogoko ditudan balio batzuekin lotu nuenean: integritatea, **asertibotasuna**, erantzukizuna, aniztasuna eta berdintasuna, esaterako. ETC-literatura, saiakera

Euskaldunaren jarrera ahalduntzeko balio ez duen **asertibotasuna** ez baita aurrerabidea berdintasunaren zentzuan. ETC-literatura, saiakera

Indarkeriaren eta pasibotasunaren artean, erdibideko jokamoldea dago: **asertibotasuna**, hau da, eraginkortasuna eta justizia. ETC-prentsa

Baina, **asertibotasunetik** abiatuta, aukera dugu egoera aztertzeko. ETC-prentsa

Planteamendua **asertibotasunaren** bidetik jotzea da; gurea defendatuko dugu bestea zapaldu barik, bestea mindu barik. ETC-prentsa

Oso garrantzitsua da Mariasun Garai Arostegi psikologoarentzat **asertibotasuna** hitza taxuz definitzea. ETC-prentsa

Ulertzea zergatik aldatzen dugun hizkuntzaz eta euskarari eroso eusteko **asertibotasunez** jokatu ahal izateko ahalduntzea. ETC-prentsa

Halako **asertibotasun** keinuaz bakarrik erakutsiko da independentismoak baduela borondatea herrialde berri bat sortzeko guztiok elkar harturik. ETC-prentsa

.? Zer behar du irakasle on batek? Enpatia, gertutasuna eta **asertibotasuna**. ETC-prentsa

Estrabertsioa edo Kanporakoitasuna: jendartean, taldeetan eta bileretan ibiltzeko, emozio indartsuen bila ibiltzeko eta emozio positiboak bizi izateko joera, **asertibotasuna** eta jardueretako energia-maila agertzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azkenik, krisialdia pairatu zuten subjektuek dependentzia, **asertibotasun** falta, konformismoa eta antzeko nortasun-arazoak zituzten. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

asertoriko *izond* berezko egia bat enuntziatzen duena.

Esakune **asertorikoak** errealitatea edo egia logikoa adierazten du, adibidez, arrazoimen-inferentzia hipotetiko batean aurrekaria premisa nagusian problematikoki. Ibon Uribarri

Asertorikoak, errealtzat (egiazkotzat) kontsideratzen dituztenak. Ibon Uribarri

---

asertorikoki *adlag* era asertorikoan.

Esakune asertorikoak errealitatea edo egia logikoa adierazten du, adibidez, arrazoimen-inferentzia hipotetiko batean aurrekaria premisa nagusian problematikoki, premisa txikian, berriz, **asertorikoki** agertzen dela, eta esakunea jadanik adimenari lotua dagoela erakusten du honen legeen arabera, eta esakune apodiktikoak asertorikoa adimenaren lege horien bitartez determinatua pentsatzen du, eta horregatik a priori baieztatzen du, eta honela beharrezkotasun logikoa adierazten du. Ibon Uribarri

Aurreko adibidean "justizia betegina dago" esakunea ez da **asertorikoki** esan, baizik eta norbaitek onartzea gerta litekeen apetazko judizio gisa baino ez da pentsatu, eta ondorioa besterik ez da asertorikoa. Ibon Uribarri

Arrazoimen hutsak **asertorikoki** juzgatzen duen horrek beharrezkoa izan behar du (arrazoimenak ezagutzen duen guztia bezala) edo hori ez da inolaz ere. Ibon Uribarri

Hemen adimenari dena mailaka eransten zaionez gero, lehenik zerbait problematikoki juzgatuz, gero **asertorikoki** egiazkotzat onartuz, eta azkenik adimenari bereiztezinki lotuta. Ibon Uribarri

---

asertzio *iz* baieztapena.

Judizio honen predikatua (**asertzioa** oro har) emateko baldintza barnebiltzen duen adigaia bilatzen dut. Ibon Uribarri

Judizio erreala konklusioa da (conclusio), eta erregelaren **asertzioa** adierazten du menperatutako kasuan. Ibon Uribarri

Kontraesan batzuk aurkitzen dira proposizioen edo **asertzioen** maila hutsean, ahalezkoak egin dituen enuntziazio-erregimenari inolako eraginik egin gabe. Xabier Arregi

---

asesinato *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **erailketa** agertzen da) iz erailketa. ik **asasinatze**; **asesinatze**; **hilketa**.*

Adulterioa eta **asesinatoa**, sexuak eta motibazio ekonomikoak eragindakoak. ETC-literatura, saiakera

Gainera denok onartzen dugu **asesinatoa** ekintza gaiztoa dela, ez da hain faltsua hori gaitzestea (eta baita tortura ere, iritsia baita behin baino gehiagotan **asesinato** izatera) eta horrekin jarraitu ahal bada legal izaten, beste izenen batekin edo ez dakit nola, Aralar eta horiekin bat eginez, adibidez, zergatik ez estudiatu asuntua? ETC-prentsa

"Acto de carácter mortal" horrek hilketa hutsa baitu barruan, ezkutuka, ihesi, baina hilketa hutsa, **asesinatoa**. ETC-prentsa

Marie Darrieusecq egile frantziarraren lan berriak gaia lantzen du eta plagioa norbaiti leporatzean **asesinato** literario bat obratzen dela azpimarratzen du, adibideak emanez, hala nola Paul Celan, Mandelstham edo Maiakowski bera. ETC-prentsa

Koinatuak dionez, "hura **asesinatoa** izan zen" eta gehitzen du: "FBIko agente bat tokiko poliziari torturatzeko teknikak erakustera etorri zen eta hura ere hil zuten". ETC-prentsa

Segur aski, Yoyesen **asesinatoak** eragin zuen, hamar urte lehenago demokraziaren definizoaz izan debate gogorren ondotik, frente kulturalaren bigarren haustura garrantzitsua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arrazoiak espekulazio gai izan ziren urte askotan: kalanbreak, bihotza, mareoa, **asesinatoa** ... ETC-entziklopedia

---

asesinatu, asesina(tu), asesinatzen *(ETCn **30** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **erail** agertzen da)* **1** du *ad* asasinatu.

Orduko kultura sailburuaren hitzak jaso zituzten 1988ko urriaren 21eko egunkariek: "gai honetan onena da hiztegietara jotzea: asesinoa **asesinatzen** duena da". Joxerra Garzia

2 irud/hed

Hoteleko ohe alokatuan, / sentimenduekin trafikatzen zuten, / gorputzak korapilatzean / amodio faltsua **asesinatuz**. Jasone Osoro

---

asesinatze *iz* asasinatzea, hilketa, erailketa.

Makilaz eta labanaz armaturiko **asesinatze**-asmoko talde asaldatu eta jendetsu bat. Jon Alonso

asesino *iz* asasinoa, hiltzailea.

Orduko kultura sailburuaren hitzak jaso zituzten 1988ko urriaren 21eko egunkariek: "gai honetan onena da hiztegietara jotzea: **asesinoa** asesinatzen duena da". Joxerra Garzia

asesore *iz* aholkularia, aholku-emailea den pertsona.

Kazetariak desagertzen ari dira gero eta gehiago, eta haien ordez adituek idazten dute aldizkarietan, medikuek, dietistek, abokatuek, psikiatrek, irakasleek **asesoreek**, gai guztiei ukitu farmazeutikoa edo penala emanez. Pako Aristi

asetasun *iz* asea dagoenaren egoera.

Beste horrenbeste esan daiteke John Keneth Galbraith ekonomilari heterodoxo estatubatuarrari buruz ere, *The Culture of Contentment* (**Asetasunaren** kultura) liburuan defendatzen duen tesi nagusia baita interesek ere gida dezaketela ekonomia. Iñaki Heras

Zenbaiten ustez, eta Galbraith-en terminologia erabiliz, **asetasunaren** kultura dago langabeziaren kontrako benetako neurriak ezartzearen kontra (bestela esanda, erreserba ejertzitoa mantentzearen alde). Iñaki Heras

Galbraithen hitzetan: "pribilegiatuen sinesmenak etengabeko **asetasunaren** kausaren zerbitzura jartzen dira, eta era bertsuan moldatzen dira garaiko ideia ekonomiko eta politikoak". Iñaki Heras

Asetasun, iz. Norbaitek bere platera hustu duenean sentitzen duena, andrea. Xabier Olarra

asetu, ase(tu), asetzen *(ETCn **776** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ase** agertzen da)* **1** du/da *ad* ase, gosea edo egarria berdindu arte jan edo edan, edo jaten edo edaten eman. ik **ase**.

Bai, bidea erraztuko ziela, eta haien odol-egarri basatia **asetuko** ziela denbora puska baterako, ziren astakeriarik beldurgarrienak asmatuz eta bere ahoan jarriz. Karlos Linazasoro

Ibai bereko urean egarria **asetu**. Xabier Amuriza

Barre algara eta korroskada artean, **asetu** baino areago gosea piztu egin zitzaienez, hurrena Erotik-shop batean sartu ziren. Patxi Zubizarreta

Momentu batean aitak pentsatzen du ama **asetuta** dagoela bere umearekin egotearekin. Arantxa Iturbe

2 (era burutua izenondo gisa)

Bildots **asetuek**, berriz, jolasean eta ikotika leunean dihardute. Xabier Amuriza

3 (era burutua izen gisa)

Alferrekoa baita eta denbora galdua **asetuei** eta jangurarik gabeei jaten ematen saiatzea. Imanol Unzurrunzaga

4 irud/hed

Realaren diru eskaintzak, ordea, ez zuen Izkoren zuzendaritza taldea **asetu**. Berria - Kirola

Neurri horrek, baina, ez ditu erreformazaleen nahiak **asetu**. Berria - Mundua

Ura edaten dut lepo, beldurraren egarri guztia **asetu** arte. Pako Aristi

Urrun dagoenaren gosea **asetu** behar du literaturak, baina baita bizitza hurbila zantarra zaionaren grina ere; gauza onak berreskuratu, eta eder ez direnak gainditu. Pako Aristi

Hura lehenagoko beste dena bezain zentzugabe zen; premia hura **asetu**, noiz-eta segundo batzuen buruan lurrera ziplo betiko hilik jaustekotan zenean. Edorta Jimenez

Christopher Isherwooden biografia bidaiez eta topaketez beteta dago zein baino zein topaketa ohiz kanpokoagoz, era guztietako ekimenez eta kupidarik gabeko aszesi premia ezin **asetuzko** batez; jateko, janzteko edo jarrera bitxiarekin bezala, nahitaez argitasuna jasaten deneko leku urrunetarako bidaiarekin lotutako aszesi batez. Berria - Kultura

Ez zaitu penetratu, baina **asetu** da. Lourdes Oñederra

Etxe guztia zegoen pizturik, eta ilunpe ondorengo argi haiek begiak **asetu** zizkioten. Anton Garikano

Tolosan aritu zen atzo entrenatzen Ritxar Tirapu, norekin eta Julian Retegi kirol zuzendariarekin harra **asetu** ezinda dabil oraindik Eratsungoa; izerdi patsetan amaitu zuen. Berria - Kirola

Herritarren beharrak erreserbekin **asetuko** dituztela diote gobernuek; industriei ezin diete berme bera eman. Berria - Mundua

Asetuko al du egiak jendearen irudimen sukartsua? Karlos Linazasoro

Antzekotasunek, aurrerago, antzekotasun sakonagoei utziko diete tartea, konpartitutako pasio zorrotzagoei, konplexuagoei, bereziagoei, edo bitxiagoei; irakurlea, ez da edozein kointzidentziarekin **asetuko**, ez du edozein antzekotasunekin dardar egingo. Lander Garro

Garai berrietara moldatuz joan gara, eta enpresen beharrak **asetuz** joan garenez, zuzenean lan mundura joateko prest daude ikasleak, eta halaxe gertatzen da. Berria - Euskal Herria

Behin aurtengo bertso irrika **asetuta**, datorren urteko Txapelketari itxoitea baino ez da geratzen. Berria - Kultura

Eta nik, hemendik eta handik karlismo borobil eta ofizialaz **aseturik**, ezari-ezarian, Foruaren eta euskararen defentsa soiletan baineuzkan kokaturik neure bihotza eta neure adimendua. Txillardegi

asetugabe *izond* asegabea, asetu ez dena.

Ezagutza baino areagoko behar ezkutu hori, kuriositate **asetugabea**. Lourdes Oñederra

asetuxe *nola adlag* aski aseturik.

Hiriak ez zion hutsik egin itsuari eta bere jakin-mina **asetuxe**, bere belarriak musikaz hanpatuxe, bere begiak hainbeste edertasun ikusteaz lanbrotuxe, Napoleserako bide urezkoa hartu zuten Aragoiko galeoi batean. Felipe Juaristi

asetzaile *(corpusean ez dago; ETCn **34** agerraldi) iz* asetzen duena.

Ez dabiltza elkarren aurka, baizik eta bata-bestearen **asetzaile.** ETC-literatura, saiakera

Hala, kontsumatze desirak lehen momentu batean **asetzailea** badirudi ere, errepikatze hutsaren puruz, hiltze-pultsioa eragiten du. ETC-literatura, saiakera

Gaude, euskaldun berri askoren euskalduntzeko urratsean bulkada bertsua dagoela, mundu **asetzaileagoaren** eraikuntza sistemarenak ez diren hizkuntzen bilaketatik ere badatorren intuiziotik. ETC-literatura, saiakera

Ardi saldo batentzat dohakabeko izan omen zen leku hori; beraz, egungo ardi saldoen egarriaren **asetzaile** bihurtu da, gizakien ekimenez. ETC-prentsa

Asetzaileak gerta daitezke _i_Mitxoletak_/i_, _i_Harmonia_/i_, _i_Lurra bion artean_/i_ eta _i_Hildakoekin doazen zapatak_/i_ poemak. ETC-prentsa

Atal honetan, aurreko batez besteko kopurua gainditu arren, hizkuntza gutxituan eskainitako informazioek irakurleari munduaren narrazio intelektualki **asetzailea** eskainiko

ez lioketen hedabideak sailka daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jendearekin batera beharrak eta behar-**asetzaileak** ('satisfactores') eraikiko dituen zientzia behar dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezaugarri hori **asetzaile** adiabatikoari dagokion energia-balantzearen, 12.50 ekuazioaren, azterketatik ondoriozta dezakegu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina, iraungitze-funtzio horrez gain, ordaintzeak edo betetzeak, obligaziozko erlazioaren posizio juridiko desberdinak kontuan hartuta, beste bi funtzio ere baditu: funtzio askatzailea eta funtzio **asetzailea**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala bada, errezela zuloetatik zeharkatzen duten argigune txikien moduan edo beste hostoetatik transmititutako argi moduan jasotzen dituzte hosto gehienek fotoi-fluxu ez-**asetzaileak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Diseinatzailearen egitekoa erabiltzailearen beharrei erantzun **asetzaile** bat ematea da. ETC-entziklopedia

---

asetze *iz* gosea edo egarria berdindu arte jatea edo edatea, edo jaten edo edaten ematea.

-Trekaren ardura duenaren egitekoa dun bezeroaren **asetze** maila norainokoa den aldiro jakitea. Aingeru Epaltza

Horrek bere ordaina du: emaitza onak eta jendearen **asetze** maila altua. Berria - Euskal Herria

CAFen idatziaren arabera, "bezeroen **asetze** maila handiagatik, sei tren gehiagoren ekoizpena hitzartu dugu". Berria - Ekonomia

---

asetzeke *adlag* asetu gabe.

Zeren eta mundu mailako sistema sozio-ekonomikoak baldintzatzen baititu bere politika nazionalak, biztanleriaren bi herenen oinarrizko beharrak **asetzeke** egotea eraginez horrenbestez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Dena den, oraindik ere **asetzeke** dagoen beste beharra azpiegiturena da, izan ere La Casillak ez ditu betetzen ACBk instalazioetarako behartzen dituen gutxieneko eskakizunak. Berria - Gaiak

Hainbat gizarte behar **asetzeke** dagoenean, ezinbestekoa da zerga bilketa behar horien finantzaketaren araberakoa izatea. Berria - Euskal Herria

---

asexual 1 *izond* sexurik ez duena.

Bere pertsonaia guztiak **asexualak** dira. Anton Garikano

Hura ere **asexuala** iruditzen zaizu -Bai? **Asexualak**? -Andereñoak ez zuen Ibsen askorik irakurri. Anton Garikano

2 ***ugalketa asexual*** *(corpusean ez dago; ETCn **106** agerraldi)*

Hainbat animalia gai dira **ugalketa asexuala** izateko. Erabiltzen diren metodoak partenogenesia eta fragmentazioz. ETC-entziklopedia

Ziliatuetan **ugalketa asexuala** mitosiaren bitartez ematen da eta ugalketa sexuala, berriz, elkarketaren bitartez. ETC-entziklopedia

Ugalketa asexualez sortutako enbrioi hori hasierako zelula amen berdina izango da. ETC-prentsa

Marmoka polipoei **ugalketa asexuala** eragiten diete. ETC-prentsa

Jakina, bakterioen kasuan **ugalketa asexualaz** ari gara. ETC-prentsa

Ugalketa asexuala duten bakterioen kasuan mutazioak, oso geldoak izateaz gain, ausazkoak ere badira, eta ostera, ugalketa sexuala duten bakterioen kasuan mutazioak azkarrak eta askotan kontrolagarriak dira. ETC-prentsa

Animalietan ugalketa-mota bi onartzen dira: ugalketa sexuala edo gamikoa eta **ugalketa asexuala** edo agamikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Prozesu honetan, **ugalketa asexuala** erabiliz, klonak edo genetikoki berdinak diren gizabanakoak lortzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Onddoetan seinale jakinek (airearekiko hifen kontaktuak, zenbait estres motek, etabar) **ugalketa asexuala**, eta ondorioz, esporen sintesia eragiten dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ugalketa asexualak ageriko ondorio genetiko bat du: mutaziorik gertatu ezean, banako baten ondorengo guztiek arbasoaren genotipo berdin-berdina dute. ETC-literatura, saiakera

---

asezin ik **aseezin**.

---

asfaltatu, asfalta(tu), asfaltatzen du *ad* asfaltoz gaineztatu.

La Pazen, gainera, orain gutxi **asfaltatu** dute errepidea; gu zain gaude. Berria - Euskal Herria

Orduan **asfaltatuko** dituzte oraingo bideak ere, zirkulazioa txikiagoa izango baita. Berria - Euskal Herria

Beste kale batzuk **asfaltatzeko** ere aurrekontua dute: Easo, Arrasate, Urbieta, Santa Katalina zubia, Berio eta Zarategi, esaterako. Berria - Euskal Herria

Lasarte-Orian errepidea **asfaltatzen** ari zirelako, bost kilometro inguruko ilarak sortu ziren goizeko 10: 30 inguruan, Irungo noranzkoan. Berria - Euskal Herria

Eta errepideak, hala-moduz **asfaltatuak**. Xabier Etxabe

Muruatik Mairuelegorretara bide **asfaltatua** egiteko asmoa dagoela zabaldu da Zigoitian, eta bisitariak autobusez igo nahi dituztela. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asfaltatu gabe** (3); **asfaltatu gabeko** (4); **bide asfaltatu** (3)

---

asfaltiko *(corpusean ez dago; ETCn **60** agerraldi)* 1 *izond* asfaltoari dagokiona.

Zoladura **asfaltikoa** bero zegoen, txaketak buru azpian zeuzkaten jarrita. ETC-literatura, saiakera

"Pirotekniako materiala, adreiluak, hormigoi blokeak, oihal **asfaltikoa**, komun bat... denetik" bota zietela esan dute epaiketan. ETC-prentsa

Hor ditugu haustura hidraulikoaren bidez erauzten diren hidrokarburo ez konbentzionalak, ingurumen aldetik hain kaltegarriak diren hondar **asfaltikoak**... ETC-prentsa

Eraikinak ez du teilarik, tela **asfaltikoa** baizik, eta hori konpontzea da egiten dabiltzana, datozen urteetarako prest uzteko. ETC-prentsa

Lodierari buruz hitz egiten dugunean, drainatze-geruza ez tratatuak 15 cm-koak izan ohi dira, eta nahaste **asfaltikoak** dituzten geruzak, berriz, 8 cm-koak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lauza erregaitz eta iragazgaitzezko estalki batez itxi behar da hobia, mastika **asfaltikozko** junturak jarrita; edo, bestela, hobiak zamak jasan beharko dituela aurreikusten bada, hormigoizko lauzaz estali behar da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi hormigoi arruntenak porlan zementuz eta zementu **asfaltikoz** eginak dira, non agregatuak legarra eta harea baitira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lodierari buruz hitz egiten dugunean, drainatze-geruza ez tratatuak 15 cm-koak izan ohi dira, eta nahaste **asfaltikoak** dituzten geruzak, berriz, 8 cm-koak. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***aglomeratu asfaltiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Aglomeratu asfaltikoa, asfaltoen nahasketa edo asfaltoen agregakinak nahastuta eta geruzetan zabaltzen diren asfalto eta mineral material (agregakin eta hauts nahasketa) trinkotuak dira; beroan nahastuz egiten da eta behin hoztuta masa gogorra bihurtzen da. ETC-entziklopedia

asfalto 1 *iz* gai naturala, belzkara, kaleak eta bideak zolatzeko erabiltzen dena.

Lurrean lorak daude, Bilboko lurrak **asfaltozko** loraz beteta daude, itzelezko lorategi gris hotza da Bilbo. Sonia Gonzalez

Ibaiaren ezkerreko erriberan urez gainezka egiten zuen **asfaltoak**. Unai Iturriaga

Asfaltozko bidetik itzuliko dira. Oskar Arana

Bankua baitzegoen hortxe lehenago; **asfaltoa** emateko kendu zuten hura." Pablo Sastre

Grazia egiten dio **asfaltoak** ia kutsatu gabeko mantxatarra zurigorrien tradizioa horren sutsuki defendatzen entzutea. Urtzi Urrutikoeetxea

Hamabost segundoz lurra ikaraturik ibili zaigu, **asfaltozko** alfonbra bat astinduko balute bezala. Javi Cillero

Bidearen zati askotan **asfaltoa** desagertu egin dela dirudi, belar izpi, zuhaitz hosto eta itzalpean birrindua. Pako Aristi

Beroak dirdira-galdak eragiten dizkio **asfaltoari**. Anjel Lertxundi

Atentzio handia jarri ezean ezin ikus daiteke gaur desfile hori, **asfaltozko** kaleak zeharkatzen dituen desfile militarren horren ezberdina, desfile zibilen hain bestelakoa. Harkaitz Cano

Mendian gora hoala, bizikletaz eta eguerdiko eguzki zutaren galgan, itzal bat ikusten duk **asfaltoa** alderik alde gurutzatzen, uzkur. Joxerra Garzia

Gidari batek, beriña beheititu eta, urtzen ari zen **asfaltoaren** gainean tu egin zuen, enerbaturik. Ramuntxo Etxeberri

Hegan egin nahiko lukeen kotxe baten gurpilek **asfaltoan** harramazka egin eta zarata gorgarria atera dute, 1 Formulako txapelketa bateko irteeran baleude bezala. Paddy Rekalde

Gogoan zuen pistaren ordez, **asfaltozko** errepide txukun-estu batek lotzen ditu baserriak egun. Iban Zaldua

Asfaltoa ozeano beltz bat bezalakoa da (edo da nire begietan). Karlos Linazasoro

Ellenek, aireari ostikoka, **asfaltozko** bidexkan behera egin zuen, zuhaixken artetik. Lopez de Arana

Elurra abisatu gabe etorri da Londresko **asfaltoaren** gainera, Fionak horrenbeste maite duen **asfaltora**. Lutxo Egia

Asfaltozko zerrenda bertan seko gelditzen da. Monika Etxebarria

Beti soa **asfaltoari** lotua. Piarres Aintziart

Urtu dira elurrak eta **asfaltoa** lehorra dago. Harkaitz Cano

Zera, beharbada zahartzen ari ninduan, ez zakiat, baina neskatxaren irudia, **asfaltoaren** gainean txikituta, etengabe etortzen zitzaidaan burura. Mikel Hernandez Abaitua

Berandu gabe itsatsi zitzaion elurra belarrari, baita bideetako **asfaltoari** ere. Joan Mari Irigoien

2 (izenondoekin)

Horko leihoetatik autoen gurpilek, **asfalto** bustiaren gainean, egiten zuten zarata akonpasatuak soinu-banda negargarria jartzen zion gauari. Berria - Kultura

Munduko Rally Txapelketa ez dela hasten Montecarloko **asfalto** izoztuan uste du askok. Berria - Kirola

Denboraldiko laugarren proba izateaz gain, sasoi honetan **asfalto** hutsean jokatuko den lehen lasterketa da Herrialde Katalanetakoa. Berria - Kirola

"Petardoak zauzkatek barruan eta ziztu bizian ateratzen dituk **asfalto** leunean zehar, txinparten gandor distiratsuek bultzatuta, eta kea atzetik botatzen ditek egiazko suhiltzaile-kamioiak bailiran." Lopez de Arana

Asfalto urtuaren eta kontzientzia urtuaren zati bat itsatsita geratu zaigu zapaten pean. Harkaitz Cano

Gure oinen pean honelako lekuetako ohiko hartxintxarra, urruntxeago belardia eta lore horiak, eta amaigabe luzatzen zen **asfalto** zuri akasgabea. Urtzi Urrutikoetxea

Asfalto ilunaren bidea segitzea erabaki ondoren, lurrean botata zegoen makila bat hartu, eta makulu gisara erabili zuen. Aritz Gorrotxategi

Baldosaturik ageri dira egun **asfalto** soilez zolatutako espaloiak. Iban Zaldua

Gauak ekarri dizkion nahigabe guztiak difuminatuz doaz karrikako **asfalto** zikina zeharkatu ahala. Sonia Gonzalez

Helduta ohartu naiz herrian sartu aitzin lurrezko xendrabide bat hartzen ahal nuela, **asfalto** beroaren bihurgune anitzak baztertuz. Piarres Aintziart

Kale bustiak, **asfalto** distiratsua eta, harantzago, ezkerrerago, ura, hiri grisa zeharkatzen duen distirarik gabeko kanal zabala, kanala zeharkatzen duten harrizko zubi urbanoak. Lourdes Oñederra

Gurpilak **asfalto** beroan harramazka. Paddy Rekalde

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eustaten arabera, apirilean prezio hazkunderik handienak honako lehengaiek izan zituzten: metalezko hoditeria (%8,2), **asfalto** produktuak (%6,7), burdina eta altzairua (%4,7) eta petroliotik eratorritako lehengaiek (%3,1). Berria - Euskal Herria

Baso itxiak inguratzen du hiru eta hiru sei erreiko **asfalto** tartea, eta lo dago pagadi, harizti eta pinudizko paisaia isiltasunean. Urtzi Urrutikoeetxea

Euri motela, gizena, zaharra, **asfalto**-txingarrei usaina eragiten dien horietakoa. Jokin Muñoz

2 ***asfalto aintzira***

Babilonian aintzira bat dago izugarri handia, **Asfalto aintzira** deitzen dena, eta betun likidoa duena ur gainean; betun hori eta adreilu errea erabiliz murru bat egin zuen Semiramisek Babiloniaren inguru guztian. Santiago Iruretagoiena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)
asfalto bustian (2); **asfalto bustiaren gainean** (2); **asfalto gainean** (5); **asfalto hutsean** (2)
asfaltoaren gainean (6); **asfaltoaren gainera** (2)
asfaltorik gabeko kaminoa (2)
asfaltozko bidexkan behera (2); **asfaltozko kaleak** (2)

---

asfaltu ik **asfalto**.

---

asfixia 1 *iz* itomena, itolarria.

Horrek **asfixia** sortzen du, eta itomenak, berriz, tribua koadrila bihurtzea dakar. Ana Urkiza

Jendetza isilik eta bat-batean lotsaturik bezala zegoen, iruditzen zitzaidan, ia beste mundutik, oraindik bere zaborrez jantzirik, **asfixiak** eta barauak erdi abereturik irteten zen munstro galdu antzeko haren inguruan. Josu Zabaleta

Ahoa zabaldu nuen hura hobeto hartzeko, arima loak hartua baitzen, ahazten ari zen, eta **asfixiaren** lehen zoraldian opio xarmatzaile oinaztarriaren pareko baten mozkor sorgingarria ari zen dastatzen. Josu Zabaleta

Zerbait zentzugabea zen, baina Patakiren lepoa inguratzen zuen kordela **asfixiaraino** estutzeko inolako zalantzarik izan ez zuten esku irmoek dardara egin zioten apur bat. Harkaitz Cano

Olivierrek esan ziezaiokeen okindegian goiz hartan ikusi duena: soldadu bat okin beltz baten burua irin zaku batean sartzen, **asfixiaraino** zurbil. Harkaitz Cano

Han indar handiko esku batek lepotik heldu, eta ubeldu bat eta **asfixia**-hasiera bat eragin zion, biriketako eta garuneko petekia-orbanek erakusten zuten bezala. Josu Zabaleta

Biriketan eta garunean agertu ziren orbanak ez zirela **asfixia**-hasiera batek eraginak, hildakoaren aspalditiko alkoholismoak eraginak baizik. Josu Zabaleta

2 ***asfixia erotiko*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***2*** *agerraldi)*

Asfixia erotikoa, hipoxifilia edo asfixiofilia ere deitua, jarduera sexualean zehar arnasketa murriztuz plazer sexuala lortzeko modu bat da, norberak egin dezake edo beste pertsona batekiko jardueran. ETC-entziklopedia

asfixiatu, asfixia(tu), asfixiatzen da *ad* ito, asfixiaz hil.

Tristea da astronautak espaziontzi zuri eta polit horiekin batera desegiten ikustea; tristeagoa oraindik espaziontziak poliki-poliki lurreratzen ikustea, baina pilotuak hilda daudela jakinda, **asfixiatu** egin direla beren kabinetan lurreratu baino lehen. Bernardo Atxaga

Ramuntxok, Etxeberriak eta hirurok, talde iraultzaile bateko burkideek, poliziak asmatutako gezur eta esamesetan **asfixiatuta** bukatu genuen; ez bonba batek zirtzilatuta edo tiro batek lurrera botata. Bernardo Atxaga

Salbamendu taldeek zanpatuta zeuden dozenaka gorpu jaso zituzten eta gehienak **asfixiatuta** edo zapalduta hil zirela jakinarazi zuten. Berria - Mundua

Gaur euskarazko abesti bat iritsi zaizu suabe eta abisatu gabe, baina konturatu aurretik ahots goxoak garrasi lazgarriak bihurtu dira eta kanta bortizki **asfixiatua** izan da onden borroka doilorrean. Lutxo Egia

---

asfodelo *iz* hosto luzeak dituen landare belarkara, lore zuriak ematen dituena.

Bazirudien Graziek **asfodelo** soro batean bildu eta elkarri eskua eman ziotela, aurpegi hura sortzeko. Anton Garikano

Azken epaia eman berri zuen, pentsatu zuen haren eskua pixkana erori zenean, altuera handi hartatik bioleta eta **asfodelozko** koroa bat erortzen utzi balu bezala, astiro hegaldatu zena lur gainean amaitu arte. Anton Garikano

---

ashanti *izond* ashanti etniari dagokiona.

Arte beltzaren kontzeptuak buztin egosizko estatua **ashanti** bat edo maskara bule bat, fetixe primitibo izatetik adierazgarritasun biziko artelan izatera aldatu zuen 1910 inguruan, formula guztiz kodetu batzuen arabera bada ere, efektu fisionomikoak erabat behartzen dituztelako. Josu Zabaleta

Oihal bat da, **Ashanti** marrazki nahiko erakargarriekin apaindua. Oskar Arana

---

asiar 1 *iz/izlag* Asiakoa, Asiari dagokiona; Asiako biztanlea.

57 **asiar**, 21 europar, 14 mendebaldeko eta 8 afrikar. Pello Salaburu

Uztartze hori ez da aise suertatzen gainerako kulturetan (ekialdetar, **asiar**, afrikar, latinoamerikarretan, kasu), non AEB eta Europarekiko gatazka berriak sortuko baitira. Askoren artean

Egongaiztasunezko lehen osagai bat **asiar** eremu honetako konkurrentziaren baldintzen distortsioari dagokio. Koro Navarro

Egiptoko **asiar** lurraldeak konkistatzeko. Iñaki Mendiguren

1994ko interes- tasa estatubatuarraren goraldiak Mexikon ezarritako kapitalen ihesa eragin zuen bezala, Estatu Batuetako eta Europako 1997ko hazkundearen lasterragotzeak izan zuen eraginik **asiar** merkatuetako kapitalen atzeraldian. Koro Navarro

Zenbateko hori alde biko aurrerakinek (Estatu Batuek, Japoniak eta abarrek) eta Garapeneko **Asiar** Bankuak finantzatu zuten. Koro Navarro

Aldi berean, dolarrak behera egin zuen, eta horrek arnasa eman zien Estatu Batuetako enpresei **asiar** konkurrentziaren aurrean. Koro Navarro

Alabaina, ez zizkioten afrikar edo **asiar** koloniek eman esportazio-merkatu garrantzitsuenak europar industriari. Koro Navarro

Mendebaldeko herrialdeetako enpleguen edota ordainketaren hondamen orokorra, **asiar** herrialdeetan eta Japonian, 1960ko hamarraldiaz geroztik, produktu manufakturatuek mundu osoko merkatuetan izan duten igoera harrigarriarekin lotu ohi da sarritan. Koro Navarro

Adierazle horren arabera, antzinako herrialde komunista batzuk (Txekoslovakia, Hungaria, Baltikoko herriak) eta lehen belaunaldiko **asiar** herri industrializatu berriak mundu garatura hurbiltzen ari dira. Koro Navarro

Zergatik ez oparotasun aurkitu berri hau Mendebaldeko kapitalisten eta Mendebaldeko industri langileen artean banatu, eta Mendebaldeko industri langileen eta **asiar**, afrikar eta indiar-amerikar nekazarien artean, mundu osoa hartzen zuen Mendebaldeko Gizartearen barne-proletalgora en masse eramanak izan zirelarik? Iñaki Mendiguren

Bere burua **asiar** gisa aurkezten du. Ibon Uribarri

2 *asiar arraza* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

2000an burututako azken erroldaren arabera auzoan 7.928 lagun bizi ziren, horietatik %86,24a arraza zurikoak ziren, %1,93a arraza beltzekoak, %0,06a indiarrak, %6,84 **asiar arrazakoak**, eta %4,80a beste arraza batzuetakoak ziren. ETC-entziklopedia

Supremazismoa arrazakeria eta antisemitismoarekin lotu ohi da, bai eta arraza beltz eta afroamerikar, mulato, indigena, Australiako aborigen australiar aborigen, mestizo, **asiar arraza**, hispano nahiz juduen aurkako gorrotoarekin ere. ETC-entziklopedia

3 *asiar begi* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Amets kabroia, **asiar begi** horiek zoratuta eta zure lehengusinari jaramonik ez. ETC-literatura, saiakera

4 *asiar bufalo* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Asiar bufaloa ("Bubalus bubalis") Bubalus generoko animalia da. Artiodaktiloen barruko Bovinae azpifamilia eta Bovidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

5 *asiar elefante* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

"Palaeoloxodon falconeri" (hizkera arruntean elefante nano deitua) egungo **asiar elefantearekin** loturiko espezie iraungitua da, Sizilian eta Maltan bizi zena. ETC-entziklopedia

Indian sanbarra eta basurdea dira tigrearen harrapakin ohikoenak, noizbehinka **asiar elefanteak** eta Indiako, Javako eta Sumatrako errinozeroak ere ehizatzen dituzte. ETC-entziklopedia

6 *asiar hartz beltz* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Asiar hartz beltz ("Ursus thibetanus") Ursus generoko animalia da. Artiodaktiloen barruko Hartz Ursidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

7 *asiar labezomorro* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Asiar labezomorroa ("Blattella asahinai") labezomorro espeziea da. Labezomorro gorriaren antzekoa da, baina hau hegalari ona da. ETC-entziklopedia

8 *asiar lehoi* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Asiar lehoia ("Panthera leo persica") gaur egun Afrikatik kanpo bizi den lehoi-subespezie bakarra da. ETC-entziklopedia

9 *asiar liztor* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hantxe eulia nire begi-inguruan beti, aldian behin liztor ere bihurtzen zena, **asiar liztor** krudela! Gaitz baten jostailu ezdeusa nintzen, beraz: bihotza sentitzeko ahalmenik gabe, burua ere batere argitasunik gabe. ETC-prentsa

Urrian, abuztuan eta azaroan kendu zuten, iaz, **asiar liztorren** habia gehien Bizkaian: guztira, 2.231. ETC-prentsa

10 *asiar txapel koniko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Asiar txapel konikoa hegoaldeko eta ekialdeko Asian tipikoa da txapel konikoa da. ETC-entziklopedia

Txinoa sukaldean erabiltzen den etxetresna bat da, iragazki metaliko bat, kono formakoa. **Asiar txapel koniko** edo Asiako txapel konikoekin duen antzagatik esaten zaio "txino", euskaraz zein inguruko erdaretan (chino, chinois). ETC-entziklopedia

11 *bufalo asiar* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Afaldu aurretik kanpoan dagoen komunera hurrendu nahi izan dut, baina uretako **bufalo asiar** itzel batek oztopatzen dit bidea. ETC-prentsa

Ghandariarrak: satrapia hau, Indus Indo ibaian gora dago, Kabul eta Lahore artean, gaur egungo Paniabaren mendebaldean. Ordezkaritza honek, lantzak eta **bufalo asiar** bat eskaintzen ditu. ETC-entziklopedia

12 *elefante asiar* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Familia honetako hiru espezie bizi da egun: sabanako elefante afrikarra, oihaneko elefante afrikarra eta **elefante asiarra** (edo elefante indiarra). ETC-entziklopedia

Kopuruak hain ikusgarriak izanik, ez da harritzekoa krisialdian **elefante asiarra** izatea begiz jota Ameriketako Estatu Batuetako garrantzitsuenek. ETC-prentsa

Baina **elefante asiarra** afrikarra baino errazagoa da etxekotzen eta, horregatik, nagusiki Asian findu eta hedatu zen teknika. ETC-prentsa

Esate baterako, "txakur" hitzak espezie bakarra besarkatzen du, baina "elefante" hitzak espezie bi, baldin eta elefante afrikarra edo **elefante asiarra** esaten ez badugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 ***lehoi asiar*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Lehoi asiarra Afrikako lehoiaren antz handia du, baina txikixeagoa da eta ez hain sendoa (160-190 kg arren kasuan, eta 110-120 kg emeen kasuan). Ilajea argixeagoa dute, eta kalparra gorriztagoa eta laburragoa, batez ere buruaren goialdean. ETC-entziklopedia

14 ***liztor asiar*** *(corpusean ez dago; ETCn **47** agerraldi)*

Liztor asiarra ("Vespa velutina") Txinan jatorria duen liztor-espeziea da, gorputza beltza duena. Espezie inbaditzaile gisa hartzen da munduko hainbat lekutan. ETC-entziklopedia

Liztor asiarren habiak suntsitzeko kanpaina hasi da Debagoienean. ETC-prentsa

Liztor asiarraren gaineko albisteak maiz entzun ditugu azkenaldian, erleen heriotzak eragin eta naturako katea arriskuan jarri dutelako. ETC-prentsa

Hemen **liztor asiarra** dugu, baita landare inbaditzaile batzuk ere. ETC-prentsa

Globalizazioak **liztor asiarra** gurera ekarri zuen bezala, urrunetik etorritakoek ere gure hiria mapa ospetsuetan jarri zuten. ETC-prentsa

Gizarteko beste hainbat esparrutan bezala, erlezainek ere arazo larria daukate **liztor asiarrarekin**. ETC-prentsa

Inoiz baino **liztor asiarren** habia gehiago kendu dituzte 2018. urtean, administrazioen datuen arabera. ETC-prentsa

Hala ere, erleentzako garai zailak ere badira, sei urte badirelako **liztor asiarra** hedatzen hasi zenetik. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jatorri asiarreko** (4)

---

asiatar *iz* asiarra, Asiako biztanlea.

49 urte badu **asiatarren** artean dagola misionest eta ez da dudarik bere artaldeak idurikatzen duela orai. Herria

Shangai Xinako hirian egin da joan den astean APEC deitu **asiatar** 21 herriek osatzen duten batasunaren bilkura. Herria

---

asiatiko *izond/iz* asiarra.

Mediterraneoa lortzeko hiru lehiakide horien arteko lehiaren hasiera denboran bat etorri zen asiriar militarismoaren azkena eta okerrena izan zen erasoaldiaren hasierarekin, arrisku haren mende zeudelarik kontinente **asiatikoan** feniziar eta etruskoak, grekoek, berriz, hartatik libratzeko aski mendebaldera bizitzeko zori ona zuten bitartean. Iñaki Mendiguren

Esaterako, Errusia **"asiatikoa"** dela esaten eta azpimarratzen denean, Iraultza sobietarrak ez duela mendebalerako balio, jakin beharko da ulertzen. Joxe Azurmendi

Munduak lehen bazeukan ordena bat, eta bakoitza bere lekuan zeuden gauzak txukun-txukun, Jainkoak agintzen duen maneran: goian europarrak, kultura ilustratuko jende jauna; behean afrikarrak eta **asiatikoak** eta enparauak. Joxe Azurmendi

Lau **asiatiko** elkarrekin mintzo ziren kantoi batean, beren hizkuntza minimalista kantariak aldiro, urteak joan arau, hunkitzen ninduela. Itxaro Borda

Munduko jendetza ehun presunetako herrixka batean kokatzen ahal baginu, lurreko populu guzien proportzioak atxikiz, bagintuzke herri hortan 57 **asiatiko**, 21 europear, 14 amerikano eta 8 afrikano. Herria

Hip hopetik English National Balletera, dantza afrikar moderno edo **asiatikotik** pasatuz. Berria - Kultura

---

asiento *iz* eserlekua

Eta, kotxe horretan, atzeko **asientoan** bazetorrean beste tipo bat eta, hark hau erori dela ikusi duenean zer egin du eta, atea zabaldu dik eta, orduantxe Saxo jaikitzen ari zuan eta, besteak atearekin buruan jo ziok; odola mara-mara... Pablo Sastre

---

asignatu ik **esleitu**; **izendatu**; **eman**; **egokitu**.

---

asignatura *iz* irakasgaia.

Kontua da Adrianen aitak beste **asignatura** bat egotea nahi duela, *dibujo geométrico*. Bernardo Atxaga

Unibertsitate garaian, **asignatura** batean hamaika gai genituelarik eta haiek guziak prestatzeko berandu zela begitantzen zitzaigularik, gehienak bazterrean laga, eta etsaminako galdera izateko aukera gehien zutenak baizik ez genituen ikasten. Berria - Kultura

Luis Batui abokatu ikasketak amaitzen ari zen; bi **asignatura** falta zitzaizkion, eta bulego batean ari zen praktikak egiten. Joxemari Iturralde

Asignatura gehienetan, orrialdearen goiko eskuinaldean data idazteko agintzen ziguten, matematiketan izan ezik. Joseba Sarrionandia

Plasta bat, horiek dituk roiloak sartzen dituena, nik ez zekiat garbi zer **asignatura** ematen digun, dena nahasten dik! Pako Aristi

Gurea oso ikastola progresista zen, eta, aukeran ematen zizkigun **asignatura** bitxien artean, "Antzerki" zegoen; guk hala deitzen genion, -a mugatzailerik gabe. Iban Zaldua

Kontua zen berak Pariseko jesuitetan ikasi zuela hamasei urte bete arte, eta latina zela **asignaturarik** gogorrena, eta asko sufritu zuela latina ikasten, baina ez zela damutzen. Unai Elorriaga

Niri laguntzen saiatzen zen, baina **asignatura** madarikatu haiek ez zuten nire buru gogorrean inola ere sartu nahi. Mikel Hernandez Abaitua

---

asignazio *(ETCn **136** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **esleipen** eta **izendapen** agertzen dira) iz* norbaiti lan baten edo egiteko jakin baten arduragatik ematen zaion diru kopurua.

Asignazioa hautsi eta Ipar Euskal Herrira itzuli zen berehala. Berria - Euskal Herria

Lurralde **asignazioari** eutsi zioten. Berria - Euskal Herria

Jose Luis Iriartek azaldu duenez, **asignazioaren** zain zeudenean, pneumonia atipikoaren auzia sortu zen. Berria - Harian

---

asilo 1 *iz* ongintzako etxea, pertsona behartsuak eta babesgabeak hartzen dituena.

Halako batean jendea ez zen gurera etortzen **asilo** bila. Iban Zaldua

Berriemaileak berak ikusi zuen **asiloko** sarraskia. Lutxo Egia

Emakumeen orrazkera moreak, lasto-kapelua erantzita daramaten gizonezko burusoilen artean: **asilo** bateko hondakinak, pentsatu nuen neure artean, esan ez banuen ere. Joxe Austin Arrieta

2 hartzen edo ematen den babesa edo abaroa.

Ohitura duten bezala, mediku kubatar batzuek **asiloa** eskatu zuten, eta egunkarietako lehen orrietan agertu dira kasuak. Pako Aristi

Halako batean jendea ez zen gurera etortzen **asilo** bila. Iban Zaldua

Tony, gizon dohakabe batek eska al lezake **asilorik** gaur gauerako zure gelan? Lopez de Arana

Asiloa eskaintzen didazu? Oskar Arana

3 ***asilo politiko*** *iz* estatu batek atzerritar bati bere herrian arrazoi politikoengatik pertsegitua delako ematen dion babesa.

Asilo politikoa onartua izan arren, galarazita zeukaten Ipar Euskal Herrian bizitzea, eta, Errepublikaren Konstituzio Legeak zioenaren kontra, atzerriratuta zeuden. Rafa Egiguren

4 ***asilo eskatzaile***

Errefuxiatuen ordezkariek NBEren eskaintza onartu zuten, erregistratu gabekoei **asilo eskatzaile** estatusa onartu eta giza laguntza eskaria aztertzeko. Berria - Mundua

Europara iristen diren etorkin gehienek ez dute hemengo hizkuntzarik hitz egiten; ondorioz, arazoak egon ohi dira **asilo eskatzaileak** diren edo paperik gabeko etorkinak diren jakiteko. Berria - Mundua

NBEren arabera, herrialde hartzaileek errefuxiatuen eta **asilo eskatzaileen** eskubideak urratzen dituzte. Berria - Harian

5 ***asilo eskubide***

Javier Galparsoro CEAR elkarteko abokatua 1989. urtean hasi zen errefuxiatuei **asilo eskubidea** lortzen laguntzeko lanean. Berria - Euskal Herria

Justiziak estradizioa bideragarritzat jotzen badu ere, **asilo eskubidearen** defentsan ari garen elkarte eta erakundeak tematsuki borrokatuko gara Frantziak ez dezan bere hitza jan. Berria - Mundua

Bestetik, UNHCR Nazio Batuen Erakundeko Errefuxiatuen Laguntzarako Agentziak atzo jakinarazi zuenez, haien ordezkaritza bat Melilla hirira joango da datorren astelehenean, etorkinen **asilo eskubidea** errespetatzen den ala ez egiaztatzera. Berria - Harian

---

asilogune *iz* asiloa ematen duen gunea.

Nigeriako **asilogunetik** herenegun desagertu zen Charles Taylor Liberiako presidente ohia atxilotu zuten atzo, Kamerunera ihes egiten saiatzen ari zelarik, eta Sierra Leonara estraditatu zuten jarraian. Berria - Mundua

Asilogune horretatik desagertu zen astelehen arratsean, hain zuzen, Nigeriak Liberiara estraditatu behar zuen egunean bertan. Berria - Mundua

---

asimetria **1** *iz* simetriarik eza.

Adierazpen horrek, batzuetan, gramatika teorian **asimetria** bat badelako ideia sortu du, gramatikak hiztunaren ikuspuntua hartzen omen duelako entzulearenaren kaltean. Itziar Laka

Espainiako erkidegoetan egun dauden eskumenen **asimetriak**, eta batez ere, batzuek dituzten abantaila fiskal eta finantzieroak" bertan behera uzteko eskatzen du manifestuak. Berria - Euskal Herria

Japoniako egoeraren **asimetria** izugarria azpimarratu behar da ordea; izan ere, Japonia ez zaie zabaltzen atzerritar inbertsioei, ezta munduko gainerako lekuetatik iritsitako gai manufakturatuei ere. Koro Navarro

Ravacholen fisonomian begia jotzen duen aurreneko gauza, basakeria da; aurpegiak oso **asimetria** nabarmena dauka, betondoak handi sudurra eskuinera oker belarriak altura desbardinetan paratuak beheko matelezurra handi, karratua eta nabarmen kriminala jaioaren ezaugarri tipikoak dituen burua. Koldo Izagirre

Alegia, mundu-ikuskera objektiboa eta subjektiboa kontrajartzen ditu, lehen eta hirugarren pertsonaren arteko **asimetria** epistemologikoan oinarritzen dena, hain zuzen. Askoren artean

Zeren monopolioak, oligopolioak, enpresen arteko akordioak, informazio eta aginte **asimetria** izugarriak, edota gobernuen araudi protekzionistak baitira nagusi. Iñaki Heras

Nazioak juridikoki eta politikoki onartzea, eta nazioen eta lurraldeen **asimetria** politikoa aitortzea. Berria - Euskal Herria

Beraz, katalana sustatuta, logikarik gabeko hizkuntz **asimetria** bukatzea da xedea. Berria - Mundua

Asimetria gehiegizko hau, barkamenaren eromen hau, legearen eta politikaren ordenatik erabat heterogeneo den gauza menderaezin hau, hauxe da Abrahanengandik datorren tradizio erlijiosoan dagoena eta kultura post-kristau bati ere ikara sortzen diona. Joseba Zulaika

Sexu arteko **asimetria** dela eta, Euskal Herriko emakumeen langabezia tasa EBkoa baino handiagoa da. Berria - Ekonomia

2 ***mordoiloen asimetria printzipio*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Brandoliniren legea edo **mordoiloen asimetria printzipioa** Interneteko zuhur-hitz bat da, astakeriak eta mordoiloak ezeztatzeko zailtasunari buruzkoa: "Edozein mordoilo ezeztatzeko behar den energia kopurua sortzeko behar dena baino magnitude ordena handiagoa da". ETC-entziklopedia

---

asimetriko **1** *izond* asimetria duena.

Nahikoa itxura abangoardistako lana zen, edo hala iruditzen zitzaidan niri garai hartan behintzat: adreilu, hormigoi eta burdina barra-barra, teilatu **asimetrikoak**, ageriko funtziorik betetzen ez zituzten zutabeak, sabai altuak, ate irristatzaile erraldoiak, kolore biziko errezelak, bulego edo gelaren bat gutxien espero zitekeen errebueltaren ostean. Iban Zaldua

2 irud/hed

Sistema kapitalistak -globalizazioa ez baita hauentzat sistema kapitalista globalaren sinonimoa baizik- lanaren nazioarteko zatiketa sortzen du, mendekotasunezko erlazioak eta elkartruke **asimetrikoak** dituen zatiketa. Iñaki Heras

ABk hartu duen erabakia finkatua da, hots, prozesu **asimetrikoari** buruz joan behar da, ez da beste aukerarik. Berria - Euskal Herria

Enpleguaren gainean bereziki ondorio desberdinak ekarriko lituzkeen talka **asimetrikorik** balego, edota eremu honetako ekonomia handien artean koiunturazko desberdintasunak sortuko balira, berehala gertatuko lirateke aurrekontu-betebeharrak ia ezin pairatuzkoak, eta izugarri areagotuko lirateke diru-politikaren gaineko akordio faltak. Koro Navarro

Eta nola gaztelaniaz "diferente" eta "desigual" desberdinak eta desigualak diren, biak diferenteak, ezberdinak eta bestelakoak, euskaraz ere biak hartu behar dira kontuan, omen: "Baina berehala esan beharra dago, Espainiako Konstituzioan plasmatu den bikameralismoa ez dela bikameralismo perfektua; eta bai aitzitik, bikameralismo **asimetriko** eta desiguala", hala dio testuak. Pello Salaburu

Andde Sainte-Marie ABko bozeramaileak, esate baterako, subiranotasunak **"asimetrikoa"** izan behar duela adierazi zuen, eta galdeketak bakarra ezingo duela izan. Berria - Euskal Herria

Beharbada orain bularrak eroriago zituen, edo **asimetrikoak**, beharbada bere zango luze eta zurietan zainen bat edo beste aterako zitzaion eta estali egin nahiko zituen edo disimulatu. Joxean Agirre

"Ez du zertan Euskadirentzat bakarrik balio duen eredua izan, eta ezin da ukatu baduela hurbiltasunik beste indar politiko batzuek aurkeztutako beste eredu federal eta **asimetrikoekin**. Berria - Euskal Herria

3 ***barra asimetriko*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Liukinek ordaina eman dio Memmeli **barra asimetrikoen** finalean, eta urrezko domina irabazi du. ETC-prentsa

Diego Hypolito brasildarrak jauzian lortu zuen garaipena, eta Ksenia Semenova errusiarrak **barra asimetrikoetan**. ETC-prentsa

Emakumezkoen kategorian erabiltzen diren aparatuak **barra asimetrikoak**, oreka-barra, lurreko ariketak eta zaldi-jauzia dira, gizonezkoen kategorian eraztunak, barra finkoa, zaldi arkuduna, barra paraleloak, zaldiko-jauzia eta lurreko ariketak diren bitartean. ETC-entziklopedia

4 *erlazio asimetriko* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

a) Heldu baten eta ume baten arteko atxikimendua **erlazio asimetrikoa** eta osagarria da umearen eta helduaren baldintzarik gabeko zainketa-sistema ren artean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, ulertu beharra dago parte hartzeak arriskuan jartzen dituela botere-mekanismoak; ez politika sistemako botereak bakarrik, baita gizarte zibilean dauden **erlazio asimetriko**, sakabanatu eta zehaztugabeetakoak ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Suposa dezagun mementokoz organismoa halaxe deskonposatzen dela; garapenean dagoen haur bat logiken segida bat dela, non logika bakoitzak literalki bere aurrekoa barneratzen duen, eta "barneratu" **erlazio asimetrikoa** da. ETC-literatura, saiakera

Taulako gainerako letra guztiek ez dute hain **erlazio asimetrikoa** O letrarekin. ETC-literatura, saiakera

Berdintasunerako politika publikoen abiapuntua edo ekoizpen-testuingurua gizonen eta emakumeen arteko **erlazio asimetrikoa** da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sortzen diren **erlazio asimetrikoak** eta baldintzatzaileak beste kategoria sozialetara zabaltzen dira, hala nola generora (Gregorio, 1997). ETC-zientzia, zuzenbidea

Hitzarekiko **erlazio asimetriko** horren aurretik, baina, bada kontratu sozial ideal bat, non lehen pertsonan egindako hizketa egintza orok aurresuposatzen eta berresten duen erabateko elkarrekikotasuna subjektu hiztun guztien artean. ETC-literatura, saiakera

Emakumeak pertsonen arteko botere **erlazio asimetrikoak** konprenitzeko eta birpentsatzeko proposamenak egiten ari dira aspalditik. ETC-literatura, saiakera

Erlazio asimetrikoak: Adibidez, Luar Iker baino handiagoa bada, Iker ezingo da Luar baino handiagoa izan. ETC-entziklopedia

5 *informazio asimetriko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Tamaina (ahalmen), lehentasun (jokabide) eta, batez ere, informazio maila oso ezberdinak dituzten (**informazio asimetrikoa** esaten zaion hori) mundu zabaleko inbertsiogileak dabiltza burtsan salerosketan. ETC-prentsa

Informazioa ez da perfektua eta eragile ekonomikoek informazio-maila ezberdina dute (**informazio asimetrikoa**). ETC-zientzia, zuzenbidea

Proposatu zuena honakoa izan zen: **informazio asimetrikoa** dagoen egoera batean, agenteentzat posiblea da beraien mota adieraztea eta beraz, informazioa beste agenteari transferitzen dio eta asimetriaren arazoa konpontzen da. ETC-entziklopedia

6 *karbono asimetriko* *(corpusean ez dago; ETCn **46** agerraldi)*

Molekula batean, **Karbono asimetrikoa**, da bere lau balentziak erradikal desberdinez beteta dituena. Hainbat konposatu organikotan agertzen dira **karbono asimetrikoak**, adibidez gluzidoetan. ETC-entziklopedia

Karbono asimetrikoa duen substantzia orok bi aukera izango ditu: ispiluaren alde bateko substantzia izatea ala bestea. ETC-prentsa

Azido laktikoak **karbono asimetriko** bat du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nukleo horri atomo asimetriko deritzo (hau da, **karbono asimetriko** edo estereozentro). ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *kriptografia asimetriko* *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi)*

Kriptografia asimetrikoa deritzo bi gako desberdin behar dituen sistema kriptografikoari, bat ezkutua eta bestea publikoa. ETC-entziklopedia

Bestela, **kriptografia asimetrikoa** izango da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Giltzarrapoen analogiara itzuliz, honela irudika dezakegu **kriptografia asimetrikoa**. ETC-literatura, saiakera

---

asimilagarri *izond* asimila daitekeena.

Izan ere, eta paradoxikoa dirudien arren, arrisku arduragarrienak dira sozio-politikoki **asimilagarrienak** direnak. Berria - Gaiak

---

asimilatu, asimila(tu), asimilatzen **1** organismoak, bere hazkunderako beharrezkoak dituen gaiak beretu.

Preso talde baten gurasoek, bestalde, Israelgo Auzitegi Gorenera jo zuten herenegun, gose grebalariei gatza eman ziezaieten eskatzeko, honela likidoak hobeto **asimilatu** ahal izateko. Berria - Mundua

2 da/du *ad* gertakari edo kideko bat nork beretzakoa egin.

Alferrik ari zen tragedia **asimilatu** eta bezpera gaueko gertakariak gogora ekarri nahian. Joanes Urkixo

Janari guztia han aurrean neukan baina jateko gogorik ez, hala ere ez nengoen urduri, artean **asimilatu** gabe neukan dena, larritasuna ordu batzuk geroago etorriko zitzaidan. Mikel Hernandez Abaitua

Irakurleari abisatzen dio: lehenengotan, egiak eta gauzak sineskaitz iruditzen zaizkio, baina, **asimilatu** ahala, errutinazko bihurtzen dira, eguneroko ortziaren urdina bezala. Xabier Amuriza

Bi segunduz, kexu batean egon naiz, egin beharrak nituen azken sei kilometroak izpiritu eta gorputzean sartuak eta **asimilatuak** nituelakotz, eneganatuak. Piarres Aintziart

Erran zidan egun batez Eliza Katolikoa, idekia izan nahiz munduari, honek **asimilatuko** zuela. Piarres Aintziart

Ez ditu galarazten; **asimilatu** egiten ditu, irentsi, jan. Iñaki Segurola

Izan ere, museo handi bateko pasilloetatik ibiltzean, hasieran ondo digeritzen dituzu ikusitakoak, baina, koadroak irentsi ahala, gorputzak ezin ditu guztiak **asimilatu** eta, bat-batean, menina bat irteten zaizu belarri batetik edo Gioconda bera sudurretik. Unai Elorriaga

Udal bozei boikot egitea erabaki zuten, orduan, gizarte palestinarrean **asimilatuta** ez geratzeko eta errefuxiatu izaerari nahiz estatusari eustea, jatorrizko lurretara itzuli ahal izateko. Berria - Harian

Memoriaren disko gogorrean artxibaturik eta **asimilaturik** zuen irudi hura. Unai Iturriaga

Judutartasunak, bera sionismotik nahiz hebraierazaletasunetik guztiz urrun eta kultura aleman eta europarrean **asimilaturik** bizi izan arren, iguruko antisemitismoak bere bereizgarri hori nabarmendu zuelako. Berria - Kultura

Gertatu zena ene baitan honelako zerbait izan zitekeen, gau luze batean sartua nintzela: sufrimendua enekin handitua zen, **asimilatua** nuen eta bidezkotzat neukan. Piarres Aintziart

Kolegioan sartu orduko, hamaika urterekin, eta batxilergoa arte, noizbehinka okaztaturik ere, azkenean **asimilatuxea** nuen latina. Piarres Aintziart

3 (era burutua izenondo gisa)

New Yorken gertatzen diren eleberri eta ipuinak, bertan bizi diren judu **"asimilatu"** edo asimilazio bidean daudenen freskoa dira maiz. Koro Navarro

---

asimilatzaile *izond* asimilatzen duena.

Batetik, eragin **asimilatzaile** edo berdintzailea SILABA batetik beste batera igarotzen dela. Lourdes Oñederra

Horregatik, txistukariaren indar **asimilatzailea** handiagoa da eta /d/, ahoskabetuta, *t* ahoskatzen da. Lourdes Oñederra

---

asimilatze *iz* organismoak, bere hazkunderako beharrezkoak dituen gaiak beretzea.

Asimilatze prozesua. Edorta Agirre

---

asimilazio **1** *iz* fonetikan, kideko bihurtzea bi soinu.

Asimilazioa da hots bat INGURUNEARI egokitzea ingurune horrekiko antza areagotuz. Lourdes Oñederra

Normalean **asimilaziozko** palatalizazio esapideak adierazten du kontsonantearen palataltasuna ez dela adierazgarria, inguruneak eragina baizik, nahiz eta mugak ez diren beti erraz ezartzen. Lourdes Oñederra

Bokal-harmonia bokalen arteko **ASIMILAZIO** mota bat da. Lourdes Oñederra

Horiek eta lehenago aipatutakoa **asimilazio** arruntak dira orain, baina ezin da erabat ukatu inoiz, agian hizkuntzak silaba gutxiagoko hitzak zituelarik, bokal- harmonia kasuak ez ote diren izan. Lourdes Oñederra

Alde batetik Guggenheimen normalizazioa suposatzen du, nolabaiteko **asimilazioa** edo onarpena, baita kritikoak izan ginen eta garenon aldetik. Berria - Kultura

2 asimilatzea.

Nahiz bereizten dituzten "eskastasunezko helburua" eta **"asimilaziozko** helburua", Teologoek eta Metafisikariek aitortzen dute, halere, Jainkoak bere buruaren gatik egin dituela gauza guztiak eta ez kreatu dituen gauzen berengatik; zeren ez dute kreazioa baino lehen Jainkoaz beste deusik asmatzen ahal, zeinarengatik Jainkoak zerbait egin zukeen. Piarres Xarriton

Mendebaldeko jentilen artean liberalismoaren orpoz orpo bizkor zetorren nazionalismoak beraien aurka banako **asimilazioaren** bidea berriro ere itxi egingo ote zuen beldurra, alegia. Iñaki Mendiguren

Semeak benetako prusiarrak ditu, **asimilazio** zaleak, erdi kristautuak. Koro Navarro

3 ***asimilazio kultural***

Auzipetutako kideak zapalkuntza horretaz aspaldi jabetu zirela esan zuten, "aspaldi jabetu ziren, halaber, bi estatuek gure herriaren aurkako **asimilazio kultural** eta linguistikorako makinaria martxan jarrita zutela». Berria - Euskal Herria

4 ***kultura asimilazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Azken mendeetan, inguruko herrialdeetako **kultura-asimilazioak** eta akulturazioak bere kopurua gutxitu du, batez ere, greziar genozidioa eta gero. ETC-entziklopedia

Eta aipatu behar da, era berean, hainbat hiztun komunitateren lege babesik eza, bere kultura propioa garatzeko; edo botere ekonomikoak, guduak, migrazio mugimenduak, **kultura asimilazioak**. ETC-prentsa

Gure kultura aberastasuna zapuzten duen **kultura asimilazioari** eta gure beharretatik haratago kontsumitzera behartzen gaituen sistemari aurre egingo diona, kontsumismoa gaindituko duen errealitate berri baterantz abiatuz. ETC-prentsa

---

asimilazionista *izond* asimilazioaren aldekoa.

Errito-tradizioaren zale ziren puritano zeloteen gaitzespena bereganatu zuen, haien begietara sionistak fedegabeziaren errudun baitziren, beren ekimen eta indarrez Lurralde Agindura fisikoki itzultzeko ustea zutelako, berez Jainkoaren pribilegio zen zerbait, Hark ongi iritzitakoan beteko zena; baina halaber argi eta garbi herodetar **asimilazionista** zirenen gaitzespena ere bereganatu zuen. Iñaki Mendiguren

---

asinkronia *iz* sinkroniarik eza.

Sinkroniaren eta **asinkroniaren** zentzua: zer da "une bera"? Josu Zabaleta

---

asinkrono *(corpusean ez dago; ETCn **354** agerraldi)* **1** *izond* beste prozesu batekin korrespondentzia tenporal osoa ez duena.

Teknologia digitalaren bilakaerak komunikaziorako bide berriak plazaratu ditu, denboraren komunikazio sinkrono eta **asinkronoa** eta espazioaren mugak gaindituz eta ikasgelan ere horiek ahalbidetuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Modurik funtsezkoenean, konbergentzia mota horri "alboratze-multimedia" esaten zaio, hau da, hainbat multimedia-elementu -testua, bideoa, audioa, irudia eta abar- konbinatzen dituzten hipertestu-mezuak, modu independente eta **asinkronoan** kontsumi daitezen. ETC-zientzia, zuzenbidea

DRAM arruntek interfaze **asinkrono** bat zuten memoria-kontrolagailuarekin komunikatzeko, eta, ondorioz, transferentzia bakoitzak gainkarga bat sortzen zuen kontrolagailuarekin sinkronizatzean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Atributuak modu **asinkronoan** eguneratzen badira, bertsio berri bakoitzak atributuetako bat bakarrik eduki dezake desberdina, eta, ondorioz, alferrik errepikatzen dira beste atributu-balioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

, Jose Ramon Zubizarreta, UEU, 2008] Estrategia horrek, espero genuen bezala, programazio **asinkronoa** hartu zuen programazioparadigma gisa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gaur egun, seriean eginiko datuen transmisioa **asinkronoa** izan ohi da, hots, aldez aurretik bidalitako karaktere edo datu batek ez du determinatzen biten igortze-denbora eta hartze-denbora. ETC-zientzia, zuzenbidea

Orduan ere denborak ezabatutako inprentako errealitatea biziko genuen askotan, baina egun bat atzerago bizitzeko modu **asinkrono** horrek ez gintuen arduratzen. ETC-prentsa

Internet munduan hedabide gehienak **asinkronoak** direnez eta gainera, esteken bidez hainbat lekutara joan ahal garenez, interesatzen zaiguna ikusten dugu eta jada ez dago lehen hedabideekiko zegoen fideltasun hura. ETC-prentsa

Baina Apollo 11.aren hegaldiko softwarea, lehenengoz, exekutatze **asinkronoa** erabiliz garatuta zegoen. ETC-prentsa

David Crystal-ek Interneteko bost eremu nagusietan bereizten du jargoiaren erabilera: Internet berean, posta elektronikoan, txat **asinkronoetan** (posta-zerrendak), txat sinkronoetan (IRC-ak adibidez) eta mundu birtualetan. ETC-entziklopedia

Igorle/Jasotzaile unibertsal **asinkrono** blokeak berriz (UART) serie hari batean datuak bidali eta jasotzeko aukera ematen du PUZarentzako karga oso txikiarekin. ETC-entziklopedia

2 ***makina asinkrono*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Zuzenean harira jo beharko duela susmaturik, bizkor eta labur gogoratzen ditu iraganeko bere lanak -eremu magnetiko birakaria, **makina asinkrono** baten asmaketa-, baina, aipatzeko baino ez, pasadizoan izendatzen ditu, korronte alternoaren inguruan dituen ideiak azaldu baino lehen. ETC-literatura, saiakera

Oro har, **makina asinkrono** trifasikoek ez dute neutrorako eroalerik, bai triangeluan konektatuta daudelako bai neutroa eskuragarri ez dutelako; horren ondorioz, ez dago korronte homopolarrentzako biderik eta. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 ***motor asinkrono*** *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Hala, sekuentzia bakoitzean balio desberdineko inpedantziak lituzkeen **motor asinkrono** baten erantzuna ere simula daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aire-erauzkailuak izan ziren enpresaren lehen produktua, industriarakoak eta etxerakoak; helize axial bat zuten, aluminioan urtu eta **motor asinkrono** anular baten errotorean finkatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 ***zirkuitu asinkrono*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Sekuentzia-logika digitaleko zirkuituak zirkuitu sinkrono sinkrono eta **zirkuitu asinkronotan** sailka daitezke. ETC-entziklopedia

---

asintomatiko *(corpusean ez dago; ETCn **94** agerraldi)* **1** *izond* sintomarik gabea.

Orduan dira imajinatu hamar bat egunen buruan hiltzen duten pozoi "**asintomatikoak**". ETC-literatura, saiakera

Gure gaitza, gaitz fundazionala, **asintomatikoa** da. ETC-literatura, saiakera

Hala ere, Argitanen arabera, garai batean ez bezala Osakidetzak ez dizkie prebentziozko azterketak egiten emakume **asintomatikoei**, ezta menopausia garaian tratamendua jasotzen dutenei ere. ETC-prentsa

Frank Wilczek: 2004an Fisikako Nobel saria jaso zuen, elkarrekintza sendoaren inguruan askatasun **asintomatikoa** aurkitzeagatik. ETC-prentsa

Kutsatu berritan, gehienetan, "**asintomatikoa**" izaten da infekzioa; kutsatuak ez du inolako ondoezik sentitzen fase akutuan. ETC-prentsa

Beraz, behar-beharrezkoa da paziente horiek, sarritan **asintomatikoak** oraindik, detektatzea eta dauzkaten arrisku-faktore guztien abordaje integraleko plan bati ekitea. ETC-prentsa

Sintomak dituztenek oso erraz jakingo dute glutena jan dutela, digestioa egin bezain laster, **asintomatikoek**, aldiz, ez, baina lesioa berdin-berdin egingo die. ETC-prentsa

Ohikoena da **asintomatikoa** izatea, baina sintomak ere ager daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oklusioa bat-batekoa izan den edo progresiboki gertatu den, sintomen larritasuna oso aldakorra izan daiteke, iktus hemisferiko handi bat izatetik **asintomatiko** izatera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Orokorrean hala ere aipatzekoa da arnas bidezko alkalosi kronikoa, **asintomatikoa** dela eta ez dituela seinale bereizgarri nabarmenik sortzen. ETC-entziklopedia

Infekzio **asintomatikoei** infekzio subklinikoak ere deitzen zaie. ETC-entziklopedia

2 *eramaile asintomatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Mikrobiologian eta medikuntzan, eramaile osasuntsua edo **eramaile asintomatikoa** mikrobio patogeno bat duen baina gaixotasun infekziosoa ez duen pertsonari deritzo. ETC-entziklopedia

---

asintota 1 *iz* lerro zuzena, mugagabe luzatzen dena kurba baterantz hura ukitzera heldu gabe.

2 irud/hed

Egiaren **asintota** da zientzia -zioen Victor Hugok-. Juan Garzia

---

asintotiko 1 *iz* asintotari dagokiona.

Esan dezakegu, zientziaren asmazioetan sartu-irtentxo bat eginaz, ustezko quark-ek omen daukaten askatasun **asintotiko** deritzanaren tankera hartzen diogula amodio gatzatuaren zera honi. Iñaki Segurola

2 *adar asintotiko erraldoi* *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Adar asintotiko erraldoia (RAG,) masa ertaineko (0,5 eta 9 edo 10 eguzki masa) izar guztiek euren bizitzaren amaieran izaten duten izar eboluzioaren periodo bat da. ETC-entziklopedia

3 *goi-borne asintotiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Analisi algoritmikoan, **goi-borne asintotiko** bat beste funtzio baten goi-borne gisa erabiltzen den funtzio bat da, argumentuak infiniturantz jotzen duenean. ETC-entziklopedia

---

asiriar 1 *izlag/iz* Asiriakoa, Asiriari dagokiona. ik **asirio**.

Hilkiasen seme Eliakimek, Xebnak eta Joahek hau erantzun zioten **asiriar** ordezkari nagusiari: - Mesedez, hitz egiguzu arameeraz, ulertzen baitugu. Elizen arteko biblia

Haranean barrena zihoala, **asiriar** soldaduen aurretalde bat atera zitzaion bidera eta, geldiaraziz, galdetu zioten: [...]. Jose Antonio Mujika

Oholak prostituzioan jardun zuen nirea izan arren; maitemindu egin zen bere maitaleez; **asiriar** gerlariak ziren denak. Elizen arteko biblia

Hitz hauek entzutean, **asiriar** gudarostearen buruzagiek, erabat izuturik, jantziak urratu eta kanpalekuaren erdian oihu eta garrasi handiak egin zituzten. Elizen arteko biblia

Neobabiloniar Inperioak, oro har, bere **asiriar** mugagizonen basakeriaren aurka mundu babilonikoaren barruko errebolta morala azpimarratzen zuenak, azkenean Juda deserrotu zuen, Asiriak Israel deserrotu zuen bezalaxe. Iñaki Mendiguren

Ematen du **Asiriar** Inperioaren ondorengo estatu neobabiloniarrak Egiptoren jarraibideari segitu ziola mertzenario helenikoak alokatzean. Iñaki Mendiguren

Babiloniarrak eta Pekod, Xoa eta Koako leinuak, eta berauekin **asiriar** guztiak, gazte ederrak, gobernari eta agintariak, gerlari bikain eta zaldun trebeak. Elizen arteko biblia

2 *alfabeto asiriar* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Resh alfabeto semitiko askotako 20. hizkia da, tartean alfabeto feniziarrean, alfabeto hebrearrean, **alfabeto asiriarrean** eta alfabeto arabiarrean (ر,). ETC-entziklopedia

3 *asiriar alfabeto* *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Asiriar alfabetoa I. mendean aramear alfabetotik eratorritako abjad motako antzinako kontsonantezko eta piktogramarik gabeko alfabetoa izan zen. ETC-entziklopedia

Hasiera batean **asiriar alfabetoan** oinarritu zela uste zen, baina hizkien ordenak greziar alfabetoarena jarraitzen du, 36 hizkiz osatua baitago, horietatik 21 greziar alfabetotik datoz, beste 11 hizkik greziar estiloa dute eta 4 hizki **asiriar alfabetotik** datoz. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asiriar gudarostearen** (3); **asiriar ordezkari** (4)
> **asiriarrak ihesi** (3)
> **asiriarren errege** (3); **asiriarren kanpalekuan** (3)

---

asiriera *iz* asiriarren hizkunza.

Turkmeniera edo **asiriera** hizkuntza ofizialak dira eremu turkmenean eta asiriarrean. Berria - Harian

"Mitoak aparte, ASIA hitza **asirierazko** *açu*-tik etor daiteke, eta "sortaldea" esan nahi du; EUROPA, berriz, asierierazko ibi edo arameozko ereb-etik, eta "arratsa" esan nahiko luke". Patziku Perurena

---

asirio *iz* asiriarra.

Onartutakoen artean komunitate guztietako ordezkariak daude, hala nola xiitak, sunitak, kurduak, turkomanoak, **asirioak** eta kaldeoak (kristauak). Berria - Mundua

Asirioek gainerliebeetan (K.a. Gotzon Garate

Asirioek gainerliebeetan (K.a. Gotzon Garate

Bere gurasoek **asirio** hizkuntza hitz egiten dute. Pako Aristi

· **Asirioa** bi milioi hiztun dituen hizkuntza omen da. Pako Aristi

---

asiriologo *iz* Asiriako historiaz eta kontuez jakintsua dena.

Juan Errandonea zena beratarrak, inoiz izan den euskaldun **asiriologorik** jakintsuenak, idatzi zuen "Analogias vascas en el vocabulario sumero-semítico" izeneko lana

leitzeko aukera izan dut. Patziku Perurena

---

asistar *izlag/iz* Asiskoa, Asisi dagokiona; Asisko biztanlea.

Baina **asistar** herriak aurre egin zien bai noble herrikideei, bai perugiarrei. Askoren artean

Bertan, Klara andrea, **asistar** jatorrikoa, harri guztiz eder eta sendoa, haren gainean ezarritako beste harrien oinarria izan zen. Askoren artean

Bere lehen lagunak ere **asistarrak** ziren (PerAn 19). Askoren artean

Asistarrek anai Frantzisko era horretan ikusi zutenean, iseka egiten zioten, pentsatuz hark eta anai Rufinok penitentziaren penitentziaz burua galdu zutela. Askoren artean

Hau zioen, perugiarren eta **asistarren** arteko gorrotoa aspaldikoa zelako. Askoren artean

Zaldunek herriaren sustapenaren aurkakoak ziren, eta **asistarren** etsai; ez da harritzekoa, beraz, Frantziskoren predikuari aurre egitea. Askoren artean

---

asistematiko *izond* sistematikotasunik ez duena.

Baina Matiasek ez zekien berezkoak ziren mantxa marroiak, hau da, dekoratzaileren batek eginak, ala dutxa horretatik pasatutako pertsona guztien aportazioak; hain ziren toke marroixka haiek **asistematikoak** eta talante artistikoari emanak. Unai Elorriaga

---

asistenta *iz* etxeko garbitze lanak egiten dituen emakumea.

Sarrerako atea zabaldu da orduan, eta emakume heldu, zartatu bat sartzen da, **asistenta**, xigarro muturra ezpainetatik txintxilika, egunonak marmarka. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikusgarria da nola generoa hautatzeak erabat kutsatzen dizun istorioa, nola sartzen zaizkizun topiko eta klixeak ia-ia konturatu gabe: pelikula almodovartarra egitea erabaki eta hara non, sartze aldera sartua nuen **asistenta**, Chus Lampreave bera bihurtu zaidan. Xabier Mendiguren Elizegi

---

asistente *iz* laguntzailea.

Hori esan dit **asistenteak**; ez dakit nolaz izan den, ez dakit ezer... Pablo Sastre

---

asistentzia *(ETCn **2.874** agerraldi)* **1** *iz* norbaiti ematen zaion laguntza edo kidekoa.

2002an ospitaleetatik kanpoko **asistentzia** gastua 323 milioi eurokoa izan zen, 2001ean baino %10 gehiago. Berria - Euskal Herria

2 saskibaloian, jokalari batek beste bati egiten dion pasea, baloia saskian erraz sar dezan.

Talde horiko lau mosketariak izan ziren berriz partidako onenak: Bryantek 26 puntu, zazpi errebote, bost lapurreta eta lau **asistentzia** lortu zituen; O'Nealek, 18 puntu eta zortzi errebote; Malonek 20 puntu, 14 errebote, sei **asistentzia**, bi lapurreta eta txapel bat; eta Paytonek 12 puntu, 13 errebote eta bi **asistentzia**. Berria - Kirola

3 ***osasun asistentzia*** *(corpusean ez dago; ETCn **144** agerraldi)*

Espainian **Osasun asistentzia** bezala ezagutzen da baina Latinoamerikako herrialde batzuetan arreta mediko, asistentzia mediko, osasun-arreta edo osasun-arreta bezala ezagutzen da. ETC-entziklopedia

Jende askok lan egiten du astean zazpi egun, oporrik gabe, batez beste 20 ordu estra sartuz astero, derrigortuta eta kobratu gabe, bizirauteko beharrezkoa den gutxieneko soldatatik behera irabaziz, baldintza oso kaxkarretan eta **osasun asistentziarik** gabe. ETC-prentsa

Greban dauden Gurutzeta ospitaleko anestesistek gatazka konpontzeko "batere asmorik" ez dutela salatu du Osakidetzako **Osasun Asistentziako** zuzendari Jon Darponek. ETC-prentsa

Medikuntza arloan, **osasun asistentziako** zentroak osasun zentro bilakatu dira, garai bateko gizarte-laguntzaileak gizarte-langileak dira egun. ETC-prentsa

AEBetako enpresa-sisteman eredua den honetan, langile gehienak lanaldi partzialean ari dira, soldata kaskarrekin eta **osasun asistentziarik** gabe. ETC-prentsa

Espetxeetako **osasun asistentzian** "arduragabekeria" dagoela salatu du Askatasunak, eta, haren arabera, espetxean bertan beti ez diete gaixo dauden euskal presoei behar besteko laguntza eskaintzen. ETC-prentsa

Osasun asistentzia egoki eta duinerako eskubidea eskubide unibertsala da. ETC-prentsa

Herriari dagokio ezarritako neurri murrizkor horietatik libratzea, **osasun asistentzia** egoki eta duina izan dezaten. ETC-prentsa

"Neurri zorrotz horiek ez dute ahalbidetzen Jose Ramonek behar duen **osasun asistentzia**", ohartarazi du elkarteak. ETC-prentsa

Irakasle ia gehienek irakaskuntza lana eta **osasun asistentzia** frontean bateragarri egin beharko zituzten, nahiz eta epe laburrerako izan. ETC-literatura, saiakera

Dena den, Gizarte Babesaren Estatistiken Europar Sistemak (SEEPROS) gizartebabesa definitzeko orduan, osasun-prestazioak, **osasun-asistentzia**, ezgaitasuna, zahartzaroa, biziraupena, familia, langabezia, etxebizitza eta gizarte-bazterketa barnebiltzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gizarteek **osasun-asistentzia** emateko antolaketa modua ere aldatu da, eta ez maila txikiagoan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

asistentzial *(ETCn **225** agerraldi)* *izond* asistentziari dagokiona, bereziki asistentzia medikoari.

Jaurlaritzak, ordea, egiten duten lana irakaskuntzakoa izateaz gainera, **asistentziala** ere badela dio, eta, beraz, ez ditu sindikatuen eskaerak onartzen. Berria - Harian

Antxia Amnistiaren Aldeko Batzordeetakoa izan zen sei urtez, deportatuei laguntza juridiko eta **asistentziala** emateko. Berria - Euskal Herria

0-3 urteko hezkuntzaren eztabaidan funtzio **asistentziala** eta funtzio pedagogikoa aurrez aurre jarri dira, ea zerk gailendu behar duen eztabaidatu da. Berria - Euskal Herria

ELAren esanetan, hezitzaileen ordez teknikariak jartzeak kalitatean eragina izango du: "Orain arte hezkuntza lana egiten zuten langileek; orain, berriz, zerbitzua **asistentziala** izango da soilik". Berria - Euskal Herria

Guri alderdi **asistentzial** hori ez zaigu gaizki iruditzen. Berria - Euskal Herria

---

asistitu ik **lagundu**; **etorri**; **joan**; **izan**[1].

---

aska *iz* abereei janaria jartzen zaien kutxa moduko ontzia, gehienetan zurezkoa.

Lurra lantzen dizueten idi eta astoek belar gozoa izango dute jateko, **aska** betean izango ere. lehen-semea izan zuen; oihaletan bildu eta abere-**aska** batean ezarri zuen, ez baitzen ostatuan haientzat tokirik. Elizen arteko biblia

Behar du arditegia plantan eman, mañaterak ongi finkatu, **askak** azkartu. Michel Oronoz

Idirik ezean, **askak** hutsik; beharrezkoa idiaren indarra uzta oparoa izateko. Elizen arteko biblia

Abere azkarrenek estaltzen zutenean, Jakobek ziriak jartzen zituen **asketan**, abereen begien aurrean, zirien aurrean ernal zitezen. Jose Antonio Mujika

Azpiak egiteko pala lana, eta **asketako** sarde lanak amaitu ondoren, Eligio, bere jokoko tokia hartu ordez, lasto pila batean etzatera joan zen; ez zen onik sentitzen, eguneko neke guztiengatik agian, eta parean harrapatu zuen ur harengatik guztiagatik. Josu Zabaleta

---

askabide *iz* arazo korapilatsu bat askatzeko bidea. ik **konponbide**.

Hizketan jarraitu zuen don Ottaviok, korapiloaren **askabidera** eraman zuen bidearen urrats bakoitza gogora ekarriz: Jon Muñoz

Ez dago, beraz, korapiloari **askabiderik** aurkitzeko modurik. Isabel Arrigain

Bere irudimen likitsari **askabidea** eman ziolarik, etorkizuna aukera dirdaitsuz beterik agertu zitzaion. Patxi Zubizarreta

Baina ez dadila une batez ere pentsatu, aipatu den une horretatik aurrera istorio triste hau kontatzen jarraitu eta inguratu duen misterioaren **askabideraino** iristean, parekotasuna luzatzeko asmo ezkutua dudanik. Koro Navarro

Xanpaina hainbat emakumeren **askabidea** dela esan du azken tanta xurgatu ostean, eta botilaren muturraz baliatzen direla beren intimidadean sartzeko, eta handik plazerra ateratzeko. Patxi Zubizarreta

Ukabilak estuturik eta burua bero, Lanzak burubide zoro bat erabili zuen bere eldarnioan, alegia, estalkia kentzea galdarari, presioari **askabide** emateko; torlojuak lasaitzen hasi orduko, hara han zirrikitutik bistara, erresuminez borborka, adur horail bat, ke kiratsezko bafada artean: galdarak bitsez beterik behar zuen. Juan Garzia

---

askaera **1** *iz* askabidea.

Puntuzkoagoa kritikok berak baino (oro har, ez berriak baitira eta ez originalak, Dilthey-ri jarraitzen zaizkio), Ortega-k entseatzen duen **askaera** entsegua da guretzat. Joxe Azurmendi

2 *iz* kontakizun edo drama batean, amaiera.

Lau ekitalditan zehar ikusi dugu ekaitza nola prestatu den, nola egin duen eztanda, eta azkeneko eszena tristera daraman **askaera** geldoa. Iban Zaldua

Egitura bera ere ez baita ohikoa, hau da, hiru zati nagusiz -planteamendua, korapiloa, **askaera** - osatua. Koro Navarro

---

askaezin *izond* ezin askatuzkoa.

Edozein modutan, arazo nagusiaren korapiloa **askaezina** da: multzo infinitu baten enumerazioa, are soilik haren zati batena. Juan Garzia

Denak zeuden gainezka eta begi zaildu batek, nirea bezalako batek alegia, bereiz zezakeen, behinolako aurpegi, hazteri eta zauriz jositako azal, hezur, piltzar eta gorputzadar zorrotzen nahaspila **askaezin** hartan, osagai horiek guztiak konpartimentu bakoitzeko gutxienez bost gorputzi zegozkiela, seiri ere bai behin edo behin. Urtzi Urrutikoetxea

Psikologiak ere Martzionen aurka Ireneok egindako kristau-aurkikuntza berresten du, hots, maitasuna eta gorrotoa, zuzentasuna eta bekatua, **askaezinik** elkarri lotuta daudela kreazioaren katean: Iñaki Mendiguren

Askaezina zen, bada, korapiloa. Anjel Lertxundi

Maitasuna diren hautamena eta ezagumena dira gizakiaren ariketarik arruntenak; baina baita ere, maitamena bezala eta berarekin batera, gizakiaren misteriorik **askaezinenak**, ezagutezinenak. Jenaro Garate

Zeren, musika hark barruko korapiloak askatzen laguntzen bazidan ere, beti baitzegoen korapilo barrukoago bat, guztiz **askaezina** eta mingarria, bizitze hutsak eta existentzia hutsak berezko min bat balute bezala. Joan Mari Irigoien

Iruzur egingo zenidaten, baina ezin ninduzuen gutxietsi: nahiz eta ni eta zuek oso desberdinak izan, hirurok lotura **askaezinez** estekaturik geundean, kristalen egitura geometrikoaren osagai desberdinak bezala. Xabier Olarra

---

askagaitz *izond* ia askaezina.

Ikuslariak hautematen dituen sorreraren hari ezkutuak eta, nolabait esatearren, izatearen erroak berak direnak, sare **askagaitz** bat egiten dutela, bizitza bakarra bizitzeko sabia bakarrak elikatua, bakarra ugaritasunean. Koldo Izagirre

Askoz zirrara handiagoa egin zidan, araztasun eta hoztasun hura ez baitzen inola ere egokitzen haren hitzetan, haren hitz urrietan -halako esan ezin batek eteten zion jarduna-sumatu nuen emozio korapilo **askagaitzarekin**. Iñaki Iñurrieta

---

askagarri *izond/iz* askatzailea.

Orro **askagarri** bat jaulki nuen orduan, irrintzi aberkoi baten tankera bere-berekoa, eta neurera etorri nintzen. Karlos Linazasoro

Haren keinu bat, haren hitz bat, haren irri bat **askagarri** sendo ziren, zulo bat egiten zuten Lagerraren ehun zurrunean, eta hurbiltzen zitzaizkion guztiak ohartzen ziren horretaz, baita haren hizkuntza ulertzen ez zutenak ere. Juan Garzia

---

askakeria *iz* gehiegizko edo abusuzko askatasuna. ik **libertinaje**.

Gure gaurko kezka arras bestelakoa da, hots, ea gerta daitekeen ohituren askatasunak ezkontideen arteko aspaldiko gorroto hori ordezkatu eta, dibortziorako errazkeria dela eta, bestelako **askakerian** erori. Andres Urrutia

---

askaldu, askal, askaltzen **1** du *ad* arratsaldeko otordua egin.

Arratsalde hartan, fakultatetik heldu berriak, ezer egiteko gogo gutxi genuela eta, telebista aurrean paratu ginen, aurreko gauean eskatu genuen teletxinatar bateko hondar hotzak **askaltzen** genituela. Iban Zaldua

2 da *ad* gosaldu.

Argi lo puxka bat eginik eta **askaldurik**, denak hotel beherean gira gure balisak tinkaturik 11k iriko. Herria

Dena aitzinetik ikusia, baina horra ikusia ez nuena: bederatzi orenetan fraideak meza nagusian ziren; tarrapataka **askaldua** nintzen. Marzel Etxehandi

Askaldu eta larunbata goiza itsas bazterrean iragaitera ateratzen dira. Eneko Bidegain

Horiek denak erranik, liburu batetik ari balitz bezala, Elenak egundainokotan bizpahiru musu eman zizkidan eta ohetik jauzian jaiki zen, mainu bat behar zuela hartu **askaltzerat** jaitsi baino lehen. Janbattitt Dirassar

Han berean **askaldu** ginen eta ibiltzen hasi. Piarres Aintziart

---

askaleku *iz* askabidea.

Baina testuek, berak nahi lukeen **askalekurako** adina eman, ez dute ematen, eta berak badaki hori, bozatzen badu ere. Joxe Azurmendi

---

askaltegi *(corpusean **askaldegi** soilik) iz* askaltzeko tokia. ik **merendero**.

Askaldegia aspaldi itxi zuten: Orangina bat hartzera gonbidatu zuen aitak hara heldu zirenean, itzuleran; muga alderako bidea hartu zuten gero. Iban Zaldua

---

askapen **1** *iz* herri bat beste baten mendekotasunetik askatze.

Egiptoarren lehen-semeen heriotza eta israeldarren **askapena**. Elizen arteko biblia

Kurdistango **askapen** mugimenduak ia sei urtez eutsi dio alde bakarreko meniari, bakeari aukera emateko. Berria - Mundua

Esadazu nahastuta nagoela, Patri, eta niretzat ere balioko duela ankerkerian oinarritutako **askapenak**. Hasier Etxeberria

Hortik atzera, era askotako giza mugimenduen isla agertuko da gizartean: langileen borrokak direla, **askapen** mugimenduak direla... Jokin Urain

Eta, esan gabe doa, gauza bera gertatzen duk **askapen** nazionala edo iraultza bezalako kontuekin: horietan ere, estoldak nagusi. Iban Zaldua

Handik egin ahalko zenion ekarpenik onena **askapen** mugimenduari. Xabier Montoia

2 *iz* behar sozial edo moraletatik askatzea.

Non ote da barne **askapenerako** bidea, haurtzaroari amaiera orain edo behin ere emango ez zaion unea? Joxan Elosegi

Ez al nuen burua atzera erortzen utzi, hantxe gogoratu zitzaidan, hobeto ezin deskribatu dezakedan **askapenaren** ideia erdi osatu hura, lehenago aipatu dudana, haren parte bat bakarrik baitzebilkidan buruan bueltaka janaria nire ezpain erresuminduetara jaso nuenean. Koro Navarro

Honako hau baino lehenago errana naiz **askapenaren** pareko gertatu zitzaidala amaren sortetxea bota zuten eguna, gogoz kontrako hainbertze oporraldiren lekuko. Aingeru Epaltza

Nik zakila hain gogorra neukanez, Antoniok atal horretatik heldu zidanean, **askapen** moduko bat sentitu nuen. Aitor Arana

3 *iz* presoez edo bahituez mintzatuz, askatzea.

Japonia Jordaniako bitartekarien bidez haien **askapena** negoziatzen aritu zen atzo. Berria - Mundua

Berrikiago, Lynch soldaduarena **askapen** heroikoa dugu, Hollywoodeko film baten gisa Pentagonoak berak estudioan grabatu, muntatu eta zabaldua. Iñigo Aranbarri

Hamazazpi urte preso egon ostean, Frantziako Estatuak egun eskubide duen **askapena** ukatu dio. Filipe Bidart

Ez zegoen deus ere, begiak hutsik neuzkan eta nire **askapenak** gozamenez betetzen ninduen. Monika Etxebarria

Ez duk jokaldi makala, zioen, ni askatzeko Kolko Mitxoletaren **askapena** eskatu, ni aske egonik eta Mitxoleta preso dudala, kontrolpean. Jon Alonso

4 ***animalien askapen*** *(corpusean ez dago; ETCn **108** agerraldi; horietatik **77** azken sei urteetan)*

Animalien askapena edo "animalien eskubideak" pentsamendu eta jarrerak animaliak indarkeriarik gabe eta aske bizitzea aldarrikatzen du. ETC-entziklopedia

ALAk (**Animalien Askapenerako** Alternatiba) eta Animalientzako Eskubideak taldeek deitu duten elkarretaratzean parte hartuko du. ETC-prentsa

Askekintza **animalien askapenerako** elkarteak janari begetarianoa duen postu bat jarriko du lehen aldiz Kilometroen ospakizuna dela-eta. ETC-prentsa

Animalien Askapen Fronteko kide izatea eta "ekintza zuzena" erabiltzea egotzita atzeman dituzte. ETC-prentsa

Animalien askapena dute elkarteok helburu. ETC-prentsa

Animalien askapena aldarrikatzen dugu, kapitalismoaren gehiegikeriak salatzen ditugu, baina haragia nahi dugu egunero bazkaltzeko, eta merke, gainera. ETC-prentsa

Helburu bat? **Animalien askapen** osoa. ETC-prentsa

Indartzen ari da urteotan **animalien askapenaren** aldeko mugimendua: ingurumari horretan ulertu behar da Nor Euskal Herriko Antiespezista taldearen eraketa. ETC-prentsa

Mugimenduaren erronka nagusia lanean jarraitzea da, **animalien askapenaren** alde: jarriko dizkiguten oztopoak gainditzea: errepresioari aurre egitea. ETC-prentsa

Kamera bilakatu du **animalien askapenaren** aldeko bere lanerako tresna. ETC-prentsa

Toki bat izan du gizakiz bertzeko **animalien askapena** helburu duen mugimendu politikoari buruzko gogoetak, Lizarran egin berri duten neska gazteen topaketan. ETC-prentsa

Peter Singerrek, 1975eko lan ospetsuan, **animalien askapenaren** kontzeptua proposatu zuen, orain gurean bili-bolo dabilena. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 ***askapen nazional***

EZLN **Askapen Nazionaleko** Armada Zapatistak atzo Chiapasaen jakinarazi zuenez, duela 10 urte egindako matxinada zapaltzeko Mexikoko Armadak gutxienez 13 pertsona hil zituen epaiketarik gabe. Berria - Mundua

Emazteen eta gizonen arteko berdintasuna, arrazakeria eta xenofobiaren aurkako jarrera, ingurumenaren aldekoa, **askapen nazionalen** aldekoa eta klase borroka aipatu zituen. Berria - Euskal Herria

FMLN **Askapen Nazionalerako** Farabundo Marti Fronteak instituzio ofizialetan dituen eserlekuen zati bat emakumeentzako da. Berria - Harian

Beharbada ez duzu jakingo, baina abertzale sutsua duzu orain, **askapen nazionalerako** mugimenduaren partaide nabarmena, eta zu ere antzekoa zinela zabaltzen ibilia. Xabier Montoia

Eta, esan gabe doa, gauza bera gertatzen duk **askapen nazionala** edo iraultza bezalako kontuekin: horietan ere, estoldak nagusi. Iban Zaldua

6 ***askapenaren teologia***

Artzapezpiku izan aurretik harreman zuzena izan zuen **Askapenaren Teologiaren** aldekoekin. Berria - Harian

Gizon gaztea zen, **askapenaren teologiaren** diskurtsoa zerabilen eta pobreen aldeko mezuak helarazten zituen. Berria - Mundua

Stalinismoz zipriztindutako marxismo-leninismotik trotskismora eta (berehala) maoismora; anarkosindikalismotik sozialismo kristaura eta **askapenaren teologiara**; erradikalismotik humanismora eta atzera buelta. Iban Zaldua

7 ***askapenerako teologia***

Askapenerako teologia bat eskaini nahi zioten Euskal Herriari, baina denak ez zauden ados, bide klasikoago bat atxikitzen zuten batzuek, eta hausketa bat bezala gertatu zitzaigun, taldearen kalteetan. Herria

8 ***emakumearen askapen*** *(ETCn **71** agerraldi)*

Eta Errebelde eta Intsumisoak zikloaren barruan, berriz, emakumeak eta **emakumearen askapenaren** aldeko borrokak protagonista dituen filmak eskainiko dituzte. Berria - Harian

Baina hori berdin zaigu orain, ezin da ulertu **emakumearen askapena** mendeku bat bezala, orain gure txanda da eta horrelakoak, basakeria jasangaitza da hori. Karlos Zabala

9 ***emakumeen askapen*** *(ETCn **141** agerraldi, horietatik **75** azken sei urteetan)*

Datuak paperetik egunerokotasunera pasatu behar direla gehitu zuen: «Datu horiek aplikatu egin behar dira hezkuntzan, hedabideetan, **emakumeen askapenerako** borrokan, industrian. Berria - Euskal Herria

10 ***gay askapen***

Gay askapenaren mezulari dabiltza Bilbon autobusak. Berria - Euskal Herria

EHGAM Euskal Herriko **Gay Askapenerako** Mugimenduak begi onez ikusi du lege proposamena, baina oraindik "jendearen aurreiritziak eta beldurrak» handiegiak direla uste dute. Berria - Harian

Horrela sortu zen Gay Mugimendua -berez, **Gay Askapenaren** Mugimendua-, bazirela agerian uzteko helburuarekin, eta beren eskubide eta eskakizunak elkarrekin defenditzeko. Luis Elberdin

11 ***nazio askapen*** *(corpusean ez dago; ETCn **87** agerraldi)*

Jasan izan dugun **nazio askapenaren** aldeko borroka loriotsua ere ez da izanen gure poema nazionalerako idazgai. ETC-literatura, saiakera

Ez hori bakarrik: soziologikoki eta politikoki ere **nazio askapenaren** bidean ekarpen handia egin dezakeelakoan nago. ETC-literatura, saiakera

Alienazioa horrenbestekoa denean, berriz, zernahi gerta liteke ustezko **nazio askapenaren** joan-etorrian. ETC-literatura, saiakera

Gauza jakina da Txillardegik fronte abertzalea proposatzen zuela, gure gizarteko kontraesan nagusitzat inperialismo espainola versus **nazio-askapena** jorik, eta ez, beste batzuek bezala, burgesia versus langileria. ETC-literatura, saiakera

Erasoei "aurre" egingo dietela iragarri zuen, betiere "**nazio askapenaren** eta burujabetzaren bidetik. ETC-prentsa

Gandhi desobedientzia zibilaren bitartez **nazio askapenaz** gain, garaiko gizartea errotik aldatzen saiatu zen, orduko kasten sistemari aurre eginez, adibidez. ETC-prentsa

Horregatik, perspektiba teoriko berri bat ireki behar izan dut **nazio askapena** ere barne hartzeko. ETC-prentsa

Nazio askapena abiapuntu, batzuentzat, berau ezin omen da uztartu klasearen internazionalismoarekin. ETC-prentsa

Zure idazkian antzematen dudanez, iritsi berria zaitugu euskal **nazio-askapenaren** aldeko borrokara. ETC-prentsa

Bukatzeko, Txetxu, nire" euskal **nazio-askapenaren** aldeko borrokaren iristeari" buruzko datu batzuk baino ez dizkizut emango. ETC-prentsa

Nazio askapenaren ideiaren atzean, oharkabean pasatu ohi den iraultza proiektu bat dago. ETC-prentsa

Gainera, garai politiko berriak eragina izan lezakeela uste du, eta toki gehiago emanen zaiela **nazio askapenaz** bestelako gaiei. ETC-prentsa

Zentzu horretan, emantzipazioaren bi logika ezberdin osatzen badituzte ere (**nazio askapenarena** eta giza berdintasunarena), modu berean bata bestearen isla dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezkerreko mugimendu gehienek klase-borrokaren eta **nazio-askapenaren** konbinazioa biltzen zuten eta horrexegatik beraiek izan ziren inperialismoari tinkoen aurre egin zioten indarrak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Exèrcit Popular Català (EPOCA), euskaraz "Kataluniako Herri Armada", Kataluniaren **nazio askapena** helburu zuen talde armatu bat izan zen, 1970 eta 1971 bitartean agertua. ETC-entziklopedia

Euskal Herrian klase borrokak **nazio askapenaren** forma hartzen du. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **askapen borroka** (4); **askapen fronte** (4); **askapen fronte arabiarra** (3); **askapen frontea** (7); **askapen mugimenduak** (4); **askapen nazionaleko armada** (9); **askapen nazionalerako** (14); **askapen prozesu** (3); **askapen prozesua** (6); **euskal herriaren askapen** (4); **gay askapen** (6); **herriaren askapen** (7); **nazio askapen** (12); **nazio askapen frontea** (6)
> **askapena lortu** (5); **bahituen askapena** (4); **baldintzapeko askapena** (6)
> **askapenaren aldeko** (5); **askapenaren teologiaren** (4)
> **askapeneko kideek** (4)
> **askapenerako armada** (13); **askapenerako borroka** (3); **askapenerako euskal erakunde** (10); **askapenerako fronte** (9); **askapenerako mugimendua** (3); **nazio askapenerako** (58); **nazio askapenerako armada** (13); **nazio askapenerako fronte** (7)

---

askarazi, askaraz, askarazten du *ad* askatzera behartu.

Makinarekin batean bihurgunearen aldera okertzeko haren mugimendu bortitzak **askarazi** zizkidan eskuak. Aingeru Epaltza

Horren ondotik, ministroak Hasan kutxatik atera, esku-oinak **askarazi**, eta alkandora dotore batekin baino ez zuen utzi. Patxi Zubizarreta

Gülbaharrek gogoeta egin zuen: Yusufek aitari zaldiarena eta arotzarena kontatzen bazion, aitak dena ulertuko zuen eta berehala konturatuko zen Gülbahar izan zela presoak **askarazi** zituena. Fernando Rey

Orduan, erregeak **askarazi** egin zuen, herrien nagusiak giltzapetik libre utzi. Elizen arteko biblia

---

askari 1 *iz* arratsaldeko otordua; otordu horretan hartzen den janaria.

Askari moduko bat gertatu ziguten obispoari harrera ona egiteko. Inazio Mujika Iraola

Eta Herausteko geltokian (frantsesek "La Négresse" birbataiatutakoan) **askari** eder ugari bat eskaini zitzaiolarik, Napoleon III.a enperadorea bera topatu zuen zain. Txillardegi

Varsoviatik landa aldera aldendu ginen igande batez, zelai batean **askaria** egiteko asmotan. Harkaitz Cano

Sukaldean hasi ginen tea hartzen, egunero-egunero arratsalde erdian, gaileta soil batzuen laguntzaz, eta te-orduko **askari** haietan hasi ginen elkar hobeto ezagutzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Bestalde Kanboko Herriko Etxeak gomita berezia egin du haur guzier, "Nemo" filma ikusi dute zinema gelan eta ondotik eskainitako arratsaldeko **askaria** gozatu. Herria

Ezetz esateko burua mugitu, begi hezeak okertu -hiltzeko zegoela ez jakitera, barre eragiteko moduan-, eta azken hatsa bota zuen gizajoak, **askariaren** orduan. Ramon Saizarbitoria

2 *iz* gosaria.

Askari gisa deus guti harturik, banoa ene bideari. Piarres Aintziart

Biharamunean, logelatik jaitsi nintzelarik **askariaren** hartzeko, ene harritzea! Janbattitt Dirassar

- Oihuka sartu ninduan Manezen etxean **askari** tenorean. Itxaro Borda

Nehor ez zen ohartu **askariaren** artetik desagertu zela bere lehen proosionea zuen mutikoa, aitzinean zebiltzanek ustez eta gibelean zela, eta azkenek, arin arina aitzinean zoala pitika bat bezala jauzika. Michel Oronoz

3 *arratsalde-askari*

Lan horien guzien ondotik bazen beti zerbait bazkari edo afari edo **arratsalde-askari**, omore hoberenean iragaiten zena, dena aralleria eta kantu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

4 *arratsaldeko askari*

Partaide guziek gero **arratsaldeko askari** bat hartuko dute Euskaldunen karrikan, Baionako Olentzero elkarteen batasunak eskainirik. Herria

Bestalde Kanboko Herriko Etxeak gomita berezia egin du haur guzier, "Nemo" filma ikusi dute zinema gelan eta ondotik eskainitako **arratsaldeko askaria** gozatu. Herria

Zaunka elkorra aireratu eta Agustinek **arratsaldeko askarian** Petarre abantxu urkatu zuen. Itxaro Borda

Oroit haiza, hirekin izan baitzen haragi-keta eta gero biek **arratsaldeko askaria** hemen egin baitzenuten. Janbattitt Dirassar

Arratsaldeko askariaren tenoreak hor berean atzeman zituzten, sekulako ixtorioa pentsatu baitzuten, egia eta gezur, denetarik, esplikatzeko nolaz mutikoa berekilan zuten eta nahi zuela gau bat egon, beharbada gehiago. Michel Oronoz

5 *askari lore* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Azafrai batzuek burua altxatu dute erretako lurretan, **askari loreak** ere ikus daitezke bazterretan, eta txapar batzuk ere hasi dira ernaberritzen. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **askari goxo** (4); **askari on baten** (4)
> **aratsaldeko askaria** (8); **arratsaldeko askaria** (6); **askaria egin** (3); **askaria izanen** (3)

---

askarite *iz* askaltzea, gosaltzea.

Batak hau eta bertzeak hura, tirabiran dagozi **askariteko** denbora guzian. Xipri Arbelbide

Goiz batez ordea, **askariteko** bilduak ziren sukaldeko mahaian, erabaki erraldoia jakinarazi zien: Itxaro Borda

askatasun *(ETCn **79.881** agerraldi)* **1** *iz* besteren mendeko ez denaren egoera; eragozpenik eza; preso edo atxilo ez dagoenaren egiera. ik **libertate**.

Askatasuna kendu zidan; etxe hartan bizitzera behartu ninduen, sekula nireak izango ez ziren gauza dotorez inguratuta. Juan Martin Elexpuru

Lanerako trenpurik biltzen ez nuelako, batean; nire oroitzapenek inorengan sor zezaketen interesarekiko zalantzaz, hurrengoan; **askatasunez** jokatzeko adore faltaz, gehienetan. Anjel Lertxundi

Abenduan jakin genuen **askatasuna** sinatuta atera zela, eta zain jarri ginen, etxera noiz iritsiko. Jokin Urain

Sorgin-ehiza sekulakoa zen, Joseph McCarthy senatariaren batutapean, eta askatasuna aitzakia bihurtu zen **askatasun** oro zapaltzeko. Fernando Morillo

Amak ez zion inoiz **askatasunik** eman eta etxea kartzela balitz bezala sentitzen zuen. Jasone Osoro

Azken egunetan lantokian bizi izan nuen **askatasunari** akabaila ematen baitzion, erabakiak errabiatuko ninduela uste zukeen Eskalatzaileak. Aingeru Epaltza

Erabakiak hartzeko orduan, **askatasuna**; erabaki horien berri emateko orduan, argitasuna; eta erabakien ondoan sortutako ondorioen aurrean, erantzukizuna, onerako nahiz txarrerako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Askatasun honek, gizakiaren arraitasunaz eta zeruaren handitasunaz nahaste, badu bere grazia. Koldo Izagirre

Hari lagunduta etorriko zen **askatasuna** gure herrira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Esklabo zinelarik deitu zintuela Jainkoak? Ez izan ardurarik; baina, **askatasuna** lortzeko aukera baduzu, ez alferrik galdu. Elizen arteko biblia

Pinpirinak bai, nonahi eta noranahi airatzen direnak, **askatasunaren** sinbolo, arintasunaren ikur, hisialdi batak edo besteak han edo hemen pausatzen dituela. Piarres Aintziart

Beren arteko ekinaldietan halako **askatasun** batez hitz egiten dio eta, inoiz, bere burua hustu ere bai. Oskar Arana

Erabaki ezak herorrek zenbat egunez gorde dezakean hire **askatasuna**, bortxatua sentitu gabe! -esan zidan ostera Adak, ahots gora burlaizetsu batez. Anjel Lertxundi

Eta Malenek orriak hartzen zituen, eta tara tara tara jarraitzen zuen, alaba izateak ematen zion **askatasuna** aprobetxatuz. Lander Garro

Gizakia ohitu egiten baita, gure aldean erraz: gizakia ohitu egiten da pozik gabe bizitzera; gizakia ohitu egiten da **askatasunik** gabe bizitzera. Felipe Juaristi

Amerikako **askatasun** eta aukera guztiak miresten dituzte. Harkaitz Cano

Baina **askatasun** honek badu heriotzaren antz pixka bat. Monika Etxebarria

Zulogilea, horixe bilakatu naiz ni, **askatasunean** bizi behar dudala erabaki eta **askatasunera** iristeko eman behar izan dudan urte luze honetan. Koldo Izagirre

ETAren hondakinetatik **askatasun** orroa. Joseba Zulaika

Batzorde bat, erabaki behar duena jaun honi zer egin: salaketa bat jarri pertsonaren **askatasuna** urratzearen delituagatik... Fernando Rey

Askatasuna behar genuen, **askatasuna**. Juan Luis Zabala

Zeregin horiek betetzen badira indartsuago bihurtuko da gizartea, kultura, **askatasun**, demokrazia, ongizate eta kohesioan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Prediku huts eta **askatasunaren** zeruari egokitu konformismoaren ildoan, militanteek urritzen zihoazen herriko apezak ederki ordezkatu zituzten nioen enetako. Itxaro Borda

Bizitza, **askatasunaren** eta zuzentasunaren aldeko borroka da. Joan Mari Irigoien

Baina izan kontu, zuen **askatasun** hori kontzientzia hezigabekoentzat behaztopagarri gerta ez dadin. Elizen arteko biblia

Hitza gogorra da, gauza guztiak **askatasunez** egiten ditugula dirudien garai honetarako, baina ez dut aurkitu gure nekea, azken urteotan, hobeto definituko lukeen beste adigairik. Pako Aristi

Nik maiteago ditut beste balore batzuk: justizia, **askatasuna**, adiskidantza, goxotasuna. Menane Oxandabaratz

Baina, ongia egiteko eman zaigularik, ez al duzu uste **askatasun** horrek ez gintuela bekaturantz eraman behar? Imanol Unzurrunzaga

Gertutik islatzen digu esklaboen historia, eta haien ahalegin etsia **askatasunaren** bila. Anton Garikano

Horren **askatasun** ekintza erraza eta sinplea egin nahi - irten, zalgurdira igo eta Rouenera joan -, eta ezin. Josu Zabaleta

Gaur hurbilago daude bakea, justizia eta **askatasuna**! Anjel Lertxundi

-Maisuaren **askatasunaren** prezioa berrogeita hamar dukat! - esan nuen nire artean, diru hartaz gogoeta eginez -. Edorta Jimenez

Historiaren biktima izatean galduriko **askatasuna** berreskuratu egin daiteke norbere historiaren egile bihurtzean. Agurtzane Juanena

-Eta orain -galdetu zuen Harry Blountek-, zer egingo dugu geure **askatasun** honekin? Karlos Zabala

Baldintza bat jarriko die, Tobosora jo beharko dutela Dulzineari eskerrak ematera **askatasunagatik**. Patxi Ezkiaga

Jendea urrats luzez zihoan kontrako norabidean, barreka eta txantxetan, ikastetxeko zelaietara, luzaroan itxarondako **askatasunaren** bila; Harry erretratu-zulora iritsi eta egongelara sartu zenerako, ia hutsik zegoen hura. Iñaki Mendiguren

Askatasuna aitortzen zenidan -eskerrak!- zure nahiei aurrera edo atzera bidea emateko, baina ez ote zitzaizun bururatu ni ataka estu horretan jartzea bera gogaikarri eta buru-hauste gaitza gerta zekidakeela? Xabier Mendiguren Elizegi

Neville agertu zen besaulki baten atzetik, Trevor apoari helduta, hark **askatasunerako** beste ahalegin bat egin zuela ematen baitzuen. Iñaki Mendiguren

- Etsaiaren ikurrak dituk eta bake adina **askatasun** uzten ez diguteno ez dituk ez libre ez eta bakean egongo. Itxaro Borda

Enetzat egiazko **askatasun** bat izan da. Filipe Bidart

Zuk uste duzu merezi duela soldata bat eskuratzearren eskolak han-hemenka ematen ibiltzea eta egunero-egunero lan egitea, beste hamaika gauzatarako **askatasuna** galduta? Jon Arretxe

Han zegoen **askatasuna**, han zegoen bakea, han zegoen, denetan atseginena, elkar biltze bat, sendotasunezko plataforma batean atseden hartze bat. Anton Garikano

Eta txapela airean zihoala falangeko afiliazio orriak bere **askatasuna** bilatu zuen. Edorta Jimenez

Ostera, esklabutza, txirotasun, aberastasun, **askatasun**, gerra, bake, euren etortzez edo joatez izaera aldagabe uzten duten gainerako guztiei, bidezko denez, gertakariak deitzen diegu. Xabier Amuriza

2 (izenondoekin)

Gurasoak pozik neuzkan eta horrek **askatasun** handia ematen zidan. Aitor Arana

Dena alferrik dela dakigunean bakarrik dukegu nahi duguna egiteko **askatasun** tristea. Juan Garzia

Nola ausartu halakoari gure barruaz jabetzen den sentimendu anabasa horren, amorrua, hertsatzea, nahigabe handia, irrealitatea, jazarraldiak, barruko harrak eta **askatasun** bitxi bat biltzen dituen nahaste-borraste horren berri ematera? Joxan Elosegi

Zintzoki eta **askatasun** osoz hitz egin ezin daitekeen estamentu batean ezin nuela jarraitu erabaki nuen. Berria - Euskal Herria

Eskatzea libre izateak emailearen erantzuna ere libretzat hartu beharra dakar, bi-biak ere **askatasun** txit gorenaren kateak baitira. Anjel Lertxundi

Zoritxarrez, Napumoceno jaunak ez zuen izan ez gutun hori ez bidean pentsatu zituen gainerakoak papereratzeko modurik, erdi mareaturik zebilenez mugitzeko **askatasun** murriztua baitzuen ontzi barruan eta liburu bat edo luma bat hartu orduko halabeharrez joan behar izaten zuen karelera. Bego Montorio

Eta Neolitoko euskal gizakiari egozten dizkion ezaugarriak - beregaintasun espirituala munduari buruz, babes eta **askatasun** espiritualaren sentimendua...-. Iñaki Iñurrieta

Eta inoiz ez nuen aurrez aurre izan hura baino **askatasun** presoagorik, zeren eta itsasoa bide irekiaren, autopista mugagabearen sinonimoa izanagatik, han ez baitzen iseka eta etengabeko gatibutasuna baizik. Jon Muñoz

Ilustrazioaren ortodoxiak ito egiten zituelako eta, beraz, debekatzen zitzaien **askatasun** pertsonalaren gosez bizi zirelako? Bernardo Atxaga

Erosotasuna, **askatasun** txiki edo handi hura bukatzen zela. Lourdes Oñederra

Askatasun intelektualaren horizonteen handiak, eztabaidak, musika, adiskidantzaren alaitasuna. Ramon Etxezarreta

Hogeita hamargarren urte aldera, Petronio, **askatasun** anizkun horren gose-egarri, esklabo alderrai eta neurrigalduen historia idazteari ekin zion. Juan Garzia

Eibar errepublika independente moduko bat izan zen urte luzetan Bizkaia eta Gipuzkoa nazionalista eta zintzokoteen erdian, abadeen diktaduratik libre samar, mundu ikuskera zabal eta aurrerazalean, ohituren **askatasun** sano batekin. Koldo Izagirre

Joera honen ustez sistema kapitalista eta baliabideen jabego pribatua dira **askatasun** politikoa eta gizartean banakoen ongizate ekonomikoa lortzeko biderik onena. Iñaki Heras

Askatasun tradizionalak nahikoa zuen pentsamendu tradizionala; **askatasun** berriak pentsaera berriak eskatzen ditu. Joxe Azurmendi

Hainbat egun behar izan zituen Harryk bere **askatasun** berri eta arraro hartara ohitzeko. Iñaki Mendiguren

Askatasun ezin handiagoan bizitzen uzten zioten, zertan ari zen inoiz galdegin gabe. Patxi Zubizarreta

Guri dagokigu denbora horren jabe izatea, **askatasun** berri baten abiapuntua hortxe kokatzen delako. Pako Aristi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lur eta zeruarekiko komunio berri bat sentiarazten zidan, zeinean bat egiten baitzuten nire **askatasun**-premiak, indarren betetasunak, eta gauzak ulertzeko goseak, horiek bultzatua baininduten kimikara. Juan Garzia

Eta, artetik erraiteko, kasu berean geunden gu geu ere euskaldunok, ezen, gure Hegoaldeko diputatu batzuek bidali ziotelarik Wilson presidenteari beren **askatasun** deia, ez zien, nik dakidala, nehork neholako erantzunik eman. Piarres Xarriton

Horrela soilik lor zezakeen exekuzioak eragiten zion erdeinu neurrigabea adieraztea eta bere espirituaren azken **askatasun**-hondar ukiezina atxikitzea. Jose Morales

Internet sortu zenean, eta gero ondoko urteetan halako abiadura handian garatu denean, **askatasun** mundua izango balitz bezala aurkeztu ziguten batzuek. Pello Salaburu

Eta oso gaizki eramaten duela **askatasun** falta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Askatasun eremua ere bazen espetxe kulunkari hura, aldizkariak lasai asko pasatzen zizkidaten, euskaraz han baino ez dut egin natural, eta nerabetarako diru apur bat ere baneukan. Urtzi Urrutikoeetxea

Luis, ordea, irri malizios batekin inguratu zait dantza eskatzera, baina erantzuteko betarik eman gabe neure burua deabruzko erritmo batean ikusi dut, Luisen gorputzari ezin itsatsiago eta, hala ere, **askatasun** sentsazio ikaragarri batekin. Patxi Zubizarreta

Elkarren ongizatearen alde sakrifikaturiko **askatasun** zati hauen baturak osatzen du nazio baten burujabetza, eta soberanoa da hauen legezko gordetzailea eta administratzailea. Juan Martin Elexpuru

"Gure barrioa 1975" liburuan ageri da **askatasun**-giro muga gabeko hori. Xabier Mendiguren Elizegi

Halako **askatasun** egarria du egungo modernajeak, non lesbianak, transexualak, marikoiak eta inon direneko gai guziak familia ofizial eske ari diren estatuari. Patziku Perurena

Ai, nolako **askatasun** sentsazioak hartu zuen Sara goitik behera, trena abian jarri zenean! Eta, amarekin izandako liskarrak gaizki sentiarazten bazuen ere, ezin pozikago zegoen, bestalde, hura guztia Sergiori zion maitasunagatik egin zuelako eta Sergiorengatik sufritu zuelako. Joan Mari Irigoien

Zaharren egoitzen baliagarritasunaz mintzo dira, seme-alaben berekoitasunaz batzuk eta **askatasun** beharraz besteak. Eider Rodriguez

Nazio hartan hasi zen bere **askatasun** lanean. Gotzon Garate

Ez ahantz hargatik kafea hitzeman eta zor didazula! Zure eskaerari erantzuteko, o, Sokrates, uste dut ez dela nahikoa bizitza materialaren segurtatzea, ildo beretik behar direla diren lekuetan hizkuntzak, lurraldeak eta **askatasun** proiektuak zaindu zein garatu. Itxaro Borda

Eta hau ere beste **askatasun**-ibilaldi askoren sinbolo bilakatzen da. Jose Antonio Mujika

Eta gauzak horrela, nolako maniobra-aukera dugu?, zein da gure **askatasun** maila egungo degradazio dinamikak edo hauetara garamatzaten antolamendu egiturak alderanzteko unean? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Libre izan nahirik, haren gogoak iparraldeko lurralde hotz hezeak maite zituen, **askatasun** lurrak zirelakoan. Felipe Juaristi

Astelehenean aztertuko du Auzitegi Nazionaleko salak **askatasun** eskaera. Berria - Euskal Herria

" **Askatasun** eskubideak berreskuratzen" hasteko eskatu dio Imazek PSOEri. Berria - Euskal Herria

Asko sufrituta ere lortu dugu **askatasun** bidean zeuden oztopo horiek gainditzea eta tresna horien mugak erakustea. Berria - Euskal Herria

Bere bi galdera nagusien erantzunak, ezagumenarena (arrazoimen huts teorikoaren galdera) eta **askatasun**-lege moralarena (bere arrazoimen huts praktikoaren galdera) potentzia den arrazoimenean ipintzen ditu eta ondoren - arrazoimenak determinatutako nahimenean. Jenaro Garate

Berriketa haiek bazuten halako gauza kitzikagarri bat, ausardiazkoa, eta erru sentimen apur batekoa: bakarrik, baina elkarrekin, gau ordua jo berria bazen ere isiltasun lodi batean eroria zirudien landaren erdian, izu gozozko, **askatasun** ikara bat sentitzen zuten barnean. Josu Zabaleta

Izua eta mendeku gosea; **askatasun** egarri nintzen baina baita tormentuak nozitzeko, gurutze bat bizkarreratzeko prest ere. Matías Múgica

Epaileak gaur goizean berean sinatu ziok baldintzarik gabeko **askatasun** agiria. Aingeru Epaltza

Beren **askatasun** amets berbera dute. Xabier Montoia

Tradizioa da, bestalde, idazle batek aurki dezakeen **askatasun**-eremurik bikainena: ereduak imita ditzake; iragana deitora dezake; kaosaren anabasan eskuak sarturik, sortu egin dezake. Anjel Lertxundi

Horrelako egoeretan hiztunak libre ikusi ohi du bere burua, eta hitzak laburtzea, hitzak batzea eta era guztietako aldakuntza fonetikoak gauzatzea izan ohi dira **askatasun** giroaren emaitza. Koldo Zuazo

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Axenario zutik dago haren aurrean, txapela izterren artean duela, erabateko ekintza-**askatasuna** gordetzearren. Itziar Otegi

Baina berehala frogatzen dute benetan babesten dutena euren enpresa-**askatasuna** dela eta ez besterik. Txema Ramirez de la Piscina

Eta, negozioak ez badira norbanakoen eskumenetik at egoteko bezain handiak, hobe izango da salerosketa-**askatasuna** pribilegio esklusiboen bidez ez oztopatzea. Iñaki Iñurrieta

Gure zibilizazioaren ikurretako bat direla uste dut, eta ez dut exajeratu nahi: denda txikietako jabeen gizabidetasun gogaikarri eta faltsutik urrun, benetako aukera-**askatasunaren** esparru bihurtu dira saltokiok. Iban Zaldua

2 ***adierazpen askatasun***

Eta zer da **adierazpen askatasuna**? Erretagoardian besoak gurutzatuta gelditu eta ekintza gizonek egiten duten guztia gaizki dagoela esateko aukera bat besterik ez da. Ramon Etxezarreta

Gainera ETAri bideo elektoral batean lekua uztea **adierazpen askatasuna** iruditzen al zaik? Pako Aristi

Adierazpen askatasuna, informazio eskubidea, hizkuntz eskubidea Ðmilaka euskaldun geratu ziren zeukaten periodiko bakarra gabeÐ norberaren segurtasunerako eskubidea.. Berria - Euskal Herria

Jacques Chiracek **adierazpen askatasunaren** defentsa sutsua egin zuen orduan. Berria - Mundua

Baina askatasun kaltegarri eta gaitzesgarri horiek bezala, sistema berberaren fruitu dira nolabait beste askatasun onuragarri batzuk; hain zuzen ere biziki estimatzen ditugun "kontzientzia askatasuna, **adierazpen askatasuna**, elkartzeko askatasuna, elkarteak osatzeko askatasuna edota enplegua". Iñaki Heras

Hau giza eskubideekin eta **adierazpen askatasunarekin** batera demokraziaren benetako espiritua da (zoritxarrez, batzuetan hau oraindik bortxatu egiten da Europako zenbait aldetan). Edorta Jimenez

Politika mailan baita **adierazpen askatasuna** okertuz doaz. Ramuntxo Etxeberri

Esaterako, izan genuen presidente bat, Jaime Lusinchi, **adierazpen askatasunaren** oso kontrakoa. Pako Aristi

Ioiok komedia biribildu gura du eta kiroldegiko tunelean **adierazpen askatasunaren** gainean dihardu. Urtzi Urrutikoeetxea

Askatasun adierazpen sarrien ke zuriak salatzen du, sarri, **adierazpen askatasunik** ezaren su mina. Joxerra Garzia

Kaka bazkatzetik bizi dira eta birziklaketa nazkagarri horri deitzen diote **adierazpen askatasuna** eta zeregin demokratikoa. Hasier Etxeberria

"Esne behiaren sindromea" irakurtzen dugu Joxerra Garziaren metaforismo batean, non **adierazpen askatasuna** eta askatasun adierazpena kontrajartzen dituen, eta izenak euskaltegietako irakasleek honez gero maiztu duten adibidea ekartzen digu gogora: esne behia versus behi esnea. Iñaki Arranz

1868ko "iraultzaren" ondoren (Isabel II.aren destronazioa, Alfontso XII), **adierazpen askatasunarekin**, positibismoa liberalismoari asoziatua agertu da, idealismoa eta espiritualismoa erregimen zaharraren aliatutzat jotzen ziren bitartean. Joxe Azurmendi

3 ***askatasun baldintzatu***

Azkena eskumuturrekoarena izan da; hasieran behin-behinean aske geundenon egoera zalantzan jartzea izan zen, besterik gabe **askatasun baldintzatuan** ginelako eta bizirik geundelako. Berria - Euskal Herria

"Lehen baldintzarik gabeko espetxean zegoen eta orain, berriz, **askatasun baldintzatua** eman diote, baina oso baldintza latzekin. Berria - Euskal Herria

Kontua da, joan den apirilaren 21ean, 18 urtez giltzapean egon ondoren libratu zuten Vanunuri **askatasun baldintzatua** ezarri diotela eta, esaterako, ezin duela Israeletik irten ezta atzerritar batekin harremanetan egon ere, agintarien baimenik gabe. Berria - Mundua

4 *askatasun kolektibo*

"Frankismoko garai ilunetan gure banakako askatasunak zein **askatasun kolektiboak** berreskuratzeari inoiz ere uko egin ez genionon erreferente izan ziren», esan zuen bi lehendakariei buruz. Berria - Euskal Herria

Askatasun kolektibo abstraktuaren antitesia. Xabier Montoia

5 *askatasun zaindu* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hala ere, zentrotik ateratzean **askatasun zaindua** ezartzen zaie denei eta hezitzailearekin astero hitz egiten dute, dena ondo doakiela ziurtatzeko. ETC-prentsa

Blayen erbesteraturik egon bitartean, **askatasun zainduaren** erregimenean, aske samar ibili ziren, eta Decaen jeneral liberalaren oniritzia eta babesa izan zituzten. ETC-literatura, saiakera

6 *askatasun zibil*

Europako Legebiltzarreko Justizia eta **Askatasun Zibilen** batzordeko presidente Jean-Louis Bourlangesek ideia ez dela "oinarrizko giza eskubideen» errespetuarekin bateragarria ohartarazi zuen. Berria - Mundua

Ildo horrek norabidea galarazi dio Alderdi kontserbadoreari, haren politika bere egin baitu bai ekonomikoki bai immigrazioari eta **askatasun zibilak** murrizteari dagokionez ere. Berria - Harian

Europako Parlamentuan **Askatasun Zibilen**, Justiziaren eta Barne Gaien Batzordean zegoen Rosa Diez, PSOEko legebiltzarkide moduan. Berria - Euskal Herria

Ondorioetako bat: demokrazia politikoak eta **askatasun zibilek** lotura zuzenagoa dute pertsonen segurtasun ekonomikoarekin, hazkuntza ekonomikoak baino. Berria - Ekonomia

Printze hark beren lehen **askatasun zibila** itzuli zien, eta zentsua ordaindu beharra kendu. Iñaki Iñurrieta

Iraultza sendotu, estatu ahaltsu baten bidez herriaren batasuna berrindartu, herritarrei gutxieneko **askatasun zibila** bermatu, askatasun politikoa sakon gutxitzearen truk, gizartea bera antolatu, giza aldra harritzar multzo horiek gizabanakoen iduriko diren hare garauak eginez. Andres Urrutia

7 *askatasuna kentze*

Jabetzen naiz, hala ere, **askatasuna kentzeak** nekez izan dezakeela ordainik. Berria - Euskal Herria

Askatasuna kentzea oso neurri larria da; oso larria da, behintzat, nortasuna modu librean garatzea ordena politikoaren eta gizarte bakearen oinarri funtsezkotzat daukaten sistema politiko guztietan. Berria - Harian

Zuzenagoa diot, erruztatuari zalantzaren alferriko oinaze ikaragarriak aurrezten zaizkiolako, hauek hazi egiten direlarik irudimenarekin eta norberaren ezintasun-sentimenduarekin; zuzenagoa, **askatasuna kentzea** berez zigorra denez, ezin delako epaia eman aurretik gauzatu, beharrak eraginda ez bada. Juan Martin Elexpuru

8 *askatasunaz gabetzeko zigor* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Askatasunaz gabetzeko zigorren betearazpena kontrolatu eta espetxeetan barneratutako pertsonei dagokien guztia ebazten dute. ETC-entziklopedia

Eta, bestetik, neurrigabetasuna bultzatzen baitute, gizabanakoak **askatasunaz gabetzeko zigor** ezinago basatiak ezarrita, eta, alderantziz, auzipetuaren nortasuna gorabehera, errugabetzat jotzekoak erabilita. ETC-prentsa

Kartzela zigorrak (" **askatasunaz gabetzeko zigorrak** ") beren erantzukizuna aitortzen dutenentzat dira, "berandu baina epaia baino lehen" aitortuz gero (5-8 urte bitartean), bai eta "beren erantzukizuna aitortu ez eta erruduntzat jotzen dituztenentzat ere" (20 urte bitartean). ETC-prentsa

Askatasunaz gabetzeko zigorraren ordez, kanporatzea erabaki eta gero, hori ezin bada burutu, hasieratik askatasunaz gabetzeko ezarri den zigorra beteko da, edo, bestela, betetzeko dagoen kondena-epealdia. ETC-zientzia, zuzenbidea

f) **Askatasunaz gabetzeko zigorra** jasotzea edo delitu batengatik lan edo kargu publikoan aritzeko desgaitze erabatekoa edo berezia. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *baldintzapeko askatasun*

Ez dizut esaten kargurik gabe ateratzen, baina bai **baldintzapeko askatasunean**, besterik ez bada. Migel Angel Mintegi

Baina mailak eta mailak daude **baldintzapeko askatasun** horretan ere. Andoni Egaña

Stephen Shaw kartzeletako eta **baldintzapeko askatasunerako** arartekoak izango du Herio doktorea izenarekin ezagun egin zen britainiarraren heriotza ikertzeko ardura. Berria - Gaiak

Horretaz gain, Espainiako Auzitegi Nazionalak atentatuekin lotura izatea leporatuta atxilotutako Jaouad el Bouzroutiri **baldintzapeko askatasuna** eman zion. Berria - Harian

Aurten Alonsok eta Montoiak **baldintzapeko askatasunik** sinatuko ez dutela esan dute. Berria - Kultura

Gu **baldintzapeko askatasunean** ohitutako piztiak gara. Andoni Egaña

50.000 pezetako bahia ezarri ziguten kaleratzeko, baina ondasunik ez genuela adieraztean **baldintzapeko askatasuna** eman ziguten. Jokin Urain

Baluke untsalaz **baldintzapeko askatasunaren** ardiesteko eskua. Herria

10 *behin-behineko askatasun*

Hamaika hilabete geroago berriro atzitu zuen Ertzaintzak, eta Durangoko komisaldegian bi egunez eduki ondoren, **behin-behineko askatasunean** utzi zuten ostera ere. Jokin Urain

Hain zuzen ere, arazo horien ondorioz utzi zuten **behin-behineko askatasunean** 1999an. Berria - Euskal Herria

-Epaileak **behin-behineko askatasuna** emanen ziok, baina kargu potzoloei egin beharko ziek aurre, Rosarioren hilketan senarrari laguntza eman izanaz. Aingeru Epaltza

- Ene abokatuak egin **behin-behineko askatasun** galdea berriz ezeztatu du jujeak. Itxaro Borda

Mzoudi **behin-behineko askatasunean** zegoen joan zen abenduaz geroztik, hain zuzen ere, Ikerketa Kriminalerako Bulego Federalak itaunketa baten zatiak aurkeztu zituenetik. Berria - Mundua

Alabaina, **behin-behineko askatasuna** ez zitzaion heldu. Berria - Harian

Behin-behineko askatasunaz bazen ere, libre irten zen, hilketen gaineko eginbideak iraun bitartean astelehenetan eta ostegunetan epailearen aurretik pasatzeko baldintzapean. Migel Angel Mintegi

11 *elkartzeko askatasun*

Zentzu horretan, "herritarrek hautatzeko eta hautatuak izateko duten eskubidea, **elkartzeko askatasuna** eta adierazpen askatasuna» defendatzeko eskatu zion Aralarrek Espainiako Auzitegi Konstituzionalari. Berria - Euskal Herria

Baina askatasun kaltegarri eta gaitzesgarri horiek bezala, sistema berberaren fruitu dira nolabait beste askatasun onuragarri batzuk; hain zuzen ere biziki estimatzen ditugun "kontzientzia askatasuna, adierazpen askatasuna, **elkartzeko askatasuna**, elkarteak osatzeko askatasuna edota enplegua". Iñaki Heras

AEBek behin eta berriz kritikatu dute Alexander Lukashenko presidentea, "adierazpen, prentsa eta **elkartzeko askatasunak** murriztea» egotzita. Berria - Harian

Giza eskubideak: Tortura "sistematikoekin» amaitzea; kurduen, gutxiengoen eta emakumeen eskubideak bermatzea eta adierazpen eta **elkartzeko askatasuna** bermatzea. Berria - Mundua

12 *erlijio askatasun*

Herritar musulmanei zera esaten die: " **Erlijio askatasunean** sinesten dugu eta hura bultzatzen dugu». Berria - Mundua

Ludinek eskolako arduradunak salatu zituen Konstituzioak **erlijio askatasuna** bermatzen duela argudiatuz. Berria - Gaiak

Adibidez, Rooseveltek esan zuen hori, 1941. urtean, lau askatasunen printzipioak aipatu zituenean: adierazpen askatasuna eta **erlijio askatasuna** behar dira, eta beldurraz eta pobreziaz aske izan behar duzu. Berria - Euskal Herria

Poloniako agintariek, beste hainbat herritan ez bezala, mende askoz mantendu zuten **erlijio-askatasun** giroa, eta juduek lasai eta eroso jarraitu zuten bertan. J.M. Olaizola "Txiliku"

13 *eskubide eta askatasun zibil* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi) pl*

Oso gogor ari gara lanean Kongresuko kideei eta estatuetako legegileei **eskubide eta askatasun zibilak** berma ditzaten presioa egiten. ETC-prentsa

Horrek esan nahi du autoek "oinarrizkoak diren **eskubide eta askatasun zibil** eta politikoak urratzen dituztela". ETC-prentsa

Erresuma Batuko, AEBetako eta Europako beste konstituzio batzuetan jasotzen diren giza **eskubide eta askatasun zibilak** urratzen badira edo ezabatu segurtasuna handitzeko, terroristek irabaziko dute. ETC-prentsa

Eskubide eta askatasun zibilen eta auziaren irtenbide politikoaren alde dagoen gehiengoa. ETC-prentsa

Irabazi asmorik gabeko erakunde horrek ikerketa kritikoa egiten du Europako barne-arazoen, **eskubide eta askatasun zibilen**, pribatutasunaren eta justiziaren inguruan. ETC-prentsa

Ikasleak ziren mugimendu hauen gidari: **eskubide eta askatasun zibilen** aldeko esloganan eramaten zituzten, pobreziaren aurkakoak, erradikalismo orokorraren eta errebultsioaren aldekoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eskubide eta askatasun zibilen zerrenda -Konstituzio modernoetako osagai tipikoa-, muga negatibo bat da funtsean. ETC-zientzia, zuzenbidea

14 *fidantzapeko askatasun*

Areago oraindik, **fidantzapeko askatasuna** Fiskaltzak salaketa "puztu» duen seinale dela adierazi du Gavito eta Sanchezen abokatuak. Berria - Ekonomia

15 *gurtza askatasun* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Adierazpen eta **gurtza askatasunean** oinarritu du Parisko fiskaltzak Constantin Costa-Gavras zinemagilearen Amen filma iragartzeko kartelaren defentsa. ETC-prentsa

"Proposatu diguten lekua ez da egokia otoi egiteko; ez dago Mekara begira, eta egiturak otoi egingo dutenen kokapena eta banaketa ere ez du errazten", azaldu zuen iragan ostiralean **gurtza askatasunaren** aldeko elkarretaratzean parte hartu zuen pakistandarren elkarteko kide batek. ETC-prentsa

Arau moral, etiko eta diziplinarioez osatua, alegia, hainbat familia-ereduri esker oso ondo bereiz daitekeena (ideologia, heziketa, gurasoen irudia, aitarena, diziplina, **gurtza askatasuna** ...). ETC-zientzia, zuzenbidea

Historian zehar, Elizak zuen pertsonen erregistroa kudeatzeko ahalmena 1869arte non urte honetako konstituzioak atxikitutako **gurtza-askatasunaren** aldarrikapena zela eta, Erregistro Zibilaren legea idatzi zen lehen aldiz. ETC-entziklopedia

Protestante kalbinistei, mugaren batzuekin, **gurtza askatasuna** baimentzen zien dekretu bat izan zen. ETC-entziklopedia

16 *kontzientzia askatasun*

Baina askatasun kaltegarri eta gaitzesgarri horiek bezala, sistema berberaren fruitu dira nolabait beste askatasun onuragarri batzuk; hain zuzen ere biziki estimatzen ditugun " **kontzientzia askatasuna**, adierazpen askatasuna, elkartzeko askatasuna, elkarteak osatzeko askatasuna edota enplegua". Iñaki Heras

Egungo egunean kultu askatasuna da oinarrizko legea eta erlijio doktrina gehienek baimentzen dute dibortzioa; dibortziorako ahalmena, gure artean, **kontzientzia askatasunarekin** uztarturik dago. Andres Urrutia

Hori lizentziatzat hartu, eta adierazpen eta **kontzientzia askatasuna** aldarrikatzen ditut, PPren politikari errepaso ederra eman ondoren, arazo politikoek irtenbide politikoak behar dituztelako. Berria - Kultura

Aldi berean, begi bistakoa da hil duten pertsonek barne lan oso bat egin behar dutela, nahiz eta ezin ditugun horretara behartu, **kontzientzia askatasuna** badutelako. Berria - Euskal Herria

17 *kultu askatasun*

Egungo egunean **kultu askatasuna** da oinarrizko legea eta erlijio doktrina gehienek baimentzen dute dibortzioa; dibortziorako ahalmena, gure artean, kontzientzia askatasunarekin uztarturik dago. Andres Urrutia

Nantesko ediktua: **kultu askatasuna** higanotendako. Aingeru Epaltza

18 *merkataritza-askatasun*

Merkataritza-askatasuna ez da tratulariei nahi dutena egiteko ematen zaien gaitasuna; hori haien esklabotza litzateke. Iñaki Iñurrieta

Gure zibilizazio osoak zutabetzat duen **merkataritza-askatasun** horren oinarri sakratuak. Lopez de Arana

Beraz, Estatuak neutral izan behar du bere aduanen eta bere merkataritzaren artean, eta bi gauza horiek elkar ez oztopatzeko moduan jardun behar du; eta orduan **merkataritza-askatasunaz** gozatuko dira. Iñaki Iñurrieta

19 *norbanakoen askatasun*

Liberalen iritziz, Estatuaren eta Elizaren elkar hartzeak Estatuaren independentzia eta **norbanakoen askatasunak** kolokan ezartzen zituen. Berria - Harian

Azkenik, konpainiak badu berariazko ezaugarri bat, neronek asko estimatzen dudana, alegia, **norbanakoen askatasunak** bere tokia duela mugimenduen garapenean, batzutan dantza egiteko gogoa eta gorputzen energia nagusitu egiten direlako talde diziplinaren gainetik. Berria - Kultura

Frantziak asmatu zuen **norbanakoen askatasuna**, eta harro dago Frantzia Frantziako Iraultzaz. Joxerra Garzia

20 *pentsamendu askatasun*

"Demokraziaren izenean beronen balio funtsezkoenetako bat, adierazpen eta **pentsamendu askatasuna**, arinki erasotzen den egunotan euren asmoak betetzeko edozein bide egokia dela» salatzen dute atzo ateratako komunikatuan. Berria - Kultura

Alemanian ez da zehaztasun-espiritua hil oraindik, baizik eta ixilarazi egin dute epe laburrez jeinuzko **pentsamendu-askatasunaren** aldeko modazko oihuek. Ibon Uribarri

21 *pentsatzeko askatasun*

Presoaren abokatuak adierazi zuen "Solek bere **pentsatzeko askatasunari** uko egitea» zela Fiskaltzaren helburua. Berria - Mundua

Pentsatzeko askatasuna murrizten duten erantzun orokorren aurkako jarrera agertu du Txillardegik. Berria - Kultura

Hitz egiteko askatasuna lortu du, baina ez **pentsatzeko askatasuna**. Patziku Perurena

Pentsatzeko askatasunaz baliatuz eta tesiak adierazteko eta teoriak lantzeko eskubidea erabiliz aldarrikatzen zuten haiek gizabanako zirela. Jon Muñoz

Higitzeko askatasuna lortu du, ez **pentsatzeko askatasuna**. Joxe Azurmendi

22 *prentsa askatasun*

Sareko **prentsa askatasuna** mugatzeko legeak ugaritu egin direla esan du RSF Mugarik Gabeko Kazetariak erakundeak 'Interneteko prentsa askatasuna' urteroko txostenean. Berria - Gaiak

Mugarik Gabeko Erreportariak taldeak gogor salatu zuen epaia eta **prentsa askatasunaren** kontrako neurriak areagotzen ari direla esan zuen. Berria - Mundua

Prentsa askatasunaren aldeko nazioarteko erakunde handienetakoa da. Berria - Euskal Herria

Ez da soilik **prentsa askatasunaren** kontrako erasoa, baita euskararen aurkakoa ere. Berria - Harian

Kontzientzia eta **prentsa askatasuna** emanak daudelarik, jabe zaitezte, hiritarrok, norberak nahi bezala jardutekoa eman behar dela, oso salbuespen gutxirekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gizakietan hiruko bat, 2.000 milioi lagun, **prentsa askatasunik** ez den herrietan bizi da. Pello Salaburu

Informazioa, talde mediatiko handien kasuan, merkantzia bihurtzen da, **prentsa askatasunak**, ikerkuntzak eta kazetaritzako ikuspegi aniztasunak zentzua galtzen duten bitartean, are albiste berak behin eta berriz ematera iristen direla. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

23 *zirkulatzeko askatasun*

Hain zuzen ere, kapitalek finantza-leku batetik bestera diru desberdinen gainean eskatutako errendimenduen eta truke-tasaren aurrerapenen arabera **zirkulatzeko askatasuna** dutenez geroztik, diru-politikak halabeharrez egin behar du aukera diruaren flotazioaren eta interes-tasak truke-tasen defentsarako erabiltzearen artean. Koro Navarro

---

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

askatasun eskaera (14); **askatasun handia** (16); **askatasun handiagoa** (35); **askatasun handiagoz** (16); **askatasun osoa** (61); **askatasun osoz** (48); **askatasun zibilak** (12); **herriaren askatasun** (11)

adierazpen askatasuna (141); **askatasuna bermatzeko** (13); **askatasuna elkarteak** (11); **askatasuna eman** (44); **askatasuna erakundeak** (29); **askatasuna eskatu** (21); **askatasuna izan** (13); **askatasuna lortu** (24); **askatasuna nahi** (19); **bakea eta askatasuna** (17); **baldintzapeko askatasuna** (73); **erabateko askatasuna** (14); **euskadi ta askatasuna** (13); **gure askatasuna** (15); **haren askatasuna** (11); **herriaren askatasuna** (13); **justizia eta askatasuna** (23); **prentsa askatasuna** (27)

askatasunean bizi (13); **bakean eta askatasunean** (23); **baldintzapeko askatasunean** (31)
askatasunen aldeko (14)
askatasunerako bidea (11); **askatasunerako eskubidea** (12)
askatasunik ez (24); **askatasunik gabe** (19)

---

askatu, aska(tu), askatzen *(ETCn **40.434** agerraldi)* **1** da/du *ad* loturik edo nolabait itsatsirik dagoenak egoera hori utzi, edo halakoari utzarazi; askatasuna eman. ik **jaregin**.

Lola erraz **askatu** da, baina gizona ostikoz jotzeko egin duen saioak ez du arrakastarik izan. Patxi Iturritegi

Cyrus bankuaren bizkarrari sokaz lotu, eta ahokoa **askatu** zioten. Anton Garikano

Egutxik giltzaz itxi zuen atea, eta futoian etzanda lo zegoen neskatxari begiratu zion errezela **askatzen** zuen bitartean. Ibon Uribarri

Bizipenei oso lotua, guztiz hormonala, baina kezkak **askatzeko** balio zidana. Ana Urkiza

Zu Dursleytarrengandik **askatzen** saiatuko ginela esanez idatzi nion. Iñaki Mendiguren

Ez baita, haatik, bakarra Hamleteko Hamlet hori: **askatu** egin zen pertsonaia aspaldi testuaren mugetatik, eta mito unibertsalen errepertorioan du geroztik bizileku. Juan Garzia

Hura hasiko da israeldarrak filistearren mendetik **askatzen**. Jose Antonio Mujika

Herria **askatu** nahi zuen, orduan moda zen bezala, eta egun batez preso hartu zuten. Matías Múgica

Besarkatu egin nuen, baina gero neu ere ohartu nintzen hura eszena samurregia zela, eta beso artetik emeki-emeki **askatu** zitzaidanean lasaitu egin nintzen. Ander Irizar

Batzuetan, ordea, ilea **askatzen** zuen, eta masailak erdi ezkutuan geratzen zitzaizkion. Anjel Lertxundi

Normalean, jendeak azaltzen zuenez, itsasoak Ekialderantz bultzatzen ditu Labartzan **askatutako** txanelak, hondoratutako ontziak, kortxo-soka atalak, egur puskak, dena. Txillardegi

Eskua masailean ezarri nion, eta propio lepoan behera irristatzen utzi nuen, eta **askatu** nion soinekoaren goiko botoia. Xabier Olarra

Jaunak, kapelua erantzi, eta lepo inguruan bildurik zeraman artilezko zapi ñabarra **askatu** zuen. Jose Morales

Mutilak Llumengana inguratu eta besotik heltzen dio, baina Llum zakarki **askatzen** da "Utikan! " esanez. Antton Olano

Blusaren botoiak **askatzen** ari da. Xabier Paya

Askatu du beso bat harresitik eta hurreratzeko zeinua egin dio. Koldo Izagirre

Hala esan zuen abadeak, sotanaren goiko botoiak **askatzen** zituen artean. Joseba Sarrionandia

Eskuak bragetara eraman, botoiak **askatu** eta dagoeneko bere onenean zegoen zakila atera zuen. Juan Martin Elexpuru

Iraganeko amesgaizto eta beldurren gatibu zegoela sumatzen nuen, eta emakume gajo hori **askatu** beharra nuela. Xabier Mendiguren Elizegi

Kopa **askatu** gabe, haren aurre-aurrean jarri zen zutunik, hanka bat ohe gainean. Lutxo Egia

Lurraren kontra **askatu** ninduen, zakar. Juan Kruz Igerabide

Soka bat **askatu** zuen leihotik kalera, eta ikusi zuen hogeita hamar oin zeudela, hor nonbait. Julen Gabiria

Askatu egin nintzen eta ontziak garbitzen jarraitu nuen. Joseba Urteaga

Bidearen tokiren batean, bere eskuak fusila **askatu** zuen, baina Oskarrek ez zuen entzun armak iratzeen artean erortzean atera zuen hots moteldua. Alberto Ladron Arana

Paradoxaz, gizabanakoa elizaren eta estatuaren uztarrietatik **askatzearren** hainbeste odol isuritako lekuetan, libertatea itxuraz inoiz baino zabalagoa eta sakonagoa delarik, herritarrok katea dugu galdatzen. Markos Zapiain

-Sofi, ez zaitut **askatuko** Ahmet eta zaldia etortzen diren arte. Fernando Rey

Zenbaki guztiak markatuak nituela ohartu nintzen emakumea soinekoaren botoiak **askatzen** ari zela. Aingeru Epaltza

Ezkutalekuetatik atera, kateak **askatu** eta, herritarren laguntzarekin, Artozki Artezki bilakatzen hasi ziren solidarioak. Edurne Elizondo

Aska dezala irakurleak helduko piezaren korapiloa. Xabier Etxabe

Ur beroak lasaitu eta pentsamenduetatik **askatu** egiten du. Sonia Gonzalez

Mendeei berena lagata, gaur korapilo hau zirt-zart orain ebaki beharrekoa baita, poliki-poliki **askatzen** ibiltzeko astirik gabe. Joxe Azurmendi

Hausnartzeko astirik gabe, makila **askatu** zuen eta ozta-ozta eutsi zion zuhaitzaren adar bati. Joanes Urkixo

Mona gau horrexetan **askatu** zuten, goizaldeko hirurak aldean. Fernando Rey

Horregatik, ahalgabe uzten gaituen erlijioaren aurrean, ahala geure eskuetara bihurtzen duen eta larritasun horretatik, anxia cordis horretatik, **askatzen** gaituen jakinduria bat aurkezten du. Xabier Amuriza

Gure aurrean jarri, eta pare bat segundo isilik egin eta gero, fularra **askatu** eta airean bota zuen. Joxerra Garzia

Horiek eta nire laguna, jakina, harik eta, indarberrituta, Irlandako erreserba batera bidali zuten arte, han **askatzeko**. Martin Anso

Barnean neukan kabalatasuna iratzartzen zihoakidan eta gutxitarik ez nuen "satisfakzione" marraka salbai bat **askatu**. Itxaro Borda

Askatzen eta lotzen diren orpo bana izango lukete: aldapan behetik gorakoan, atze aldean normal; eta ibilbide lauan, kendu. Jesus Mari Mendizabal

-Askatzea nahi duzue? -moztu zien Sofiak, etena eginez dantzaldian-. Jon Arretxe

Agorril erdiko eguzkiak bezainbat berotu zuen anaiaren lerroak "badu hiru hilabete igorriak ditugula agiriak zure **askatzearen** beha gaude. Eneko Bidegain

Arrantzarako kainaberaren punteran sortzen den korapiloa lehenbailehen **askatu** behar da baldin eta ez bada aparailu guztia alferrik galdu nahi. Hasier Etxeberria

Ez daukagu oraingoz korapiloa **askatzeko** modurik, baina kontua da Mogelek Bizkaiko euskarara itzulita argitaratu zuela liburu bera 1803an. Koldo Zuazo

Ausartu ere ez nintzen egiten bota luzeak **askatzen** zangoak zeinen grisak zituen ikusteko. Koro Navarro

Tutueria itsututa dagoenean eta iturginak **askatzen** duen moduan egiten diagu guk. Joxemari Iturralde

Berari zor diozue izatea, Jesu Kristori esker. Berau egin du Jainkoak guretzat jakinduria, berorren bidez **askatu** gaitu bekatutik, salbatu eta bere egin. Elizen arteko biblia

Zorionez, baina, azken berrogeita hamar urtean askeago jokatzen hasi dira, eta mihia ere **askatu** dute, eta beren diskurtsoa lantzen hasi dira eta lotsarik gabe hitzez adierazten. Luis Elberdin

Behin eta berriz ahalegindu arren ez du oihala **askatzea** erdietsi. Pello Lizarralde

Txoririk eskura etorriz gero, ez zuen berehalakoan **askatuko**. Karlos Zabala

Daily News kazetak dio Robert Chambers hurrengoko urtean, otsailean **askatuko** dutela. Gotzon Garate

Zerbait egin behar-eta, miliziakoek kutxa **askatu** eta barneak miatu dizkiote. Aingeru Epaltza

Haizeak bezala inguratzen nau, eta lotzen, **askatzen** nauelarik. Joxerra Garzia

Lagun diezazuela Jainko Ahaltsuak gizon haren errukia aurkitzen eta, zuen anaia **askatuta**, utz diezaiela hari eta Benjamini zuekin etortzen. Jose Antonio Mujika

Letra bihurturik bere ahotsetik **askatu** diren hitz beldurgarriek. Lourdes Oñederra

Esan nahian bezala, arimak jolas egiten duela gorputzetik **askatzen** denean. Karlos Linazasoro

Ondoren, burua makurtu, gillotinak erakusten zuèn tartean sartu, eta borreroak gillotinaren xafla metalikoa **askatu** zuen, burua errotik mozten zidala. Joan Mari Irigoien

Lehorrean zeuden mutilek soka muturrak **askatu** eta piztien erara jauzi eta zapart, barrura egin zuten. Felipe Juaristi

Alkandora zuria **askatuta** zeukan, ardo mantxa handi batekin. Bernardo Atxaga

Eskual Herri hori **askatua** izanen dela bere nortasuna azkartuz? Menane Oxandabaratz

2 (era burutua izenondo gisa)

-Ez goaz Kasinora, ala? -soka **askatua** eskuetan zuen. Edorta Jimenez

Lurra gizarte-klase berri batek lantzen du, jopuen klaseak; klase hori libre izandako eta proletario bihurturiko gizonek eta liberto edo esklabo **askatuek** osatzen zuten, batzuk zein besteak, beheraldi demografikoa eta segurtasun fisikoaren falta zela-eta, boteretsuen babespera etorrita. Koro Navarro

Haren adats **askatua**, oso luze, oso beltza, besaulkiaren bizkarraren gainetik zintzilik lurra ukitzeraino iristen zela iruditzen zitzaidan. Josu Zabaleta

-Aberri **Askatua**, ala hil. Txillardegi

Horixe nuen hasierako asmoa, berak modeloarena egin zezan guretzat, baina behin idunekoa eskuetan hartu eta bere larruazal marroi argiaren kontra jarri zuenean (turkesa koloreko blusaren goiko botoi **askatuaren** azpi-azpian agerian zeukan haragi eremu txiki haren parean, alegia), brau aldatu zitzaidan gogoa. Oskar Arana

Orduan Viktor Manuel erregea hegoalderantz joan zen laster, bere zaldun sudur-moztaileekin lur **askatuetan** barrena, botaren mutur aldera. Fernando Rey

Baina, Gauzen izaeraz irakurrita, inork ez zukeen ondoriorik aterako, hemen grinei eta desira **askatuei** ekiteko predikurik dagoenik. Xabier Amuriza

Eta Janson leran erdi etzanda jartzen zen, jarrera deserosoan, erdi lo balego bezala, larruzko txano soilduaren belarri **askatuak** indarrik gabe zintzilik, ehiza-txakurraren belarrien antzera, eta sudurtxo gorrituaren azpia heze. Jose Morales

Egun ezin dut begitandu nasa hutsik, Maruxa, ikusi egin behar zaitudalako, ikusi egin nahi zaitudalako bidoi herdoilduen, sare meten eta kaxa **askatuen** artean airoski, egungo festarako hiriburutik berariaz etorritako gaiteiro taldearen ondotik eder, zure zapata zoletan itsasten diren ezkatak bezain distiratsu. Koldo Izagirre

Azpildura **askatua** zuen, eta botoiak ezin nituen lotu, gainera. Josu Zabaleta

Ilea gaztain-kolorea zuen, goialdean bildua modaz pasatako moduan, kizkur **askatuak** eta motots batekin; arrosa zuri artifizial bat ateratzen zitzaion mototsetik, belarria ukitzen ziona. Koro Navarro

3 *dantza askatu*

Dena dela, erromerietan ez zen bakarrik **dantza askatuan** egiten eta dultzemeneoko dantzak ere estimatzen zituzten. Berria - Kultura

Dantza askatuan hasi dira gutariko bi, astiro-astiro, beren adinari dagokion maneran, baina erritmoa txukun gordez. Anjel Lertxundi

4 *gorputza askatu*

Hala, "burua eta **gorputza askatzeko**» deia egiten die emakumeei. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)**
>
> **askatu ahal** (11); **askatu behar** (47); **askatu behar izan** (11); **askatu beharko** (14); **askatu ditu** (24); **askatu dituzte** (30); **askatu du** (26); **askatu dute** (27); **askatu egin** (95); **askatu eta gero** (11); **askatu ezean** (13); **askatu gabe** (31); **askatu nahi** (36); **askatu nahian** (13); **askatu ondoren** (13); **askatu zen** (25); **askatu zituen** (70); **askatu zituzten atzo** (17); **askatu zuen** (140); **askatu zutela** (20); **askatu zuten** (114); **atzo askatu** (15); **botoiak askatu** (17); **eskua askatu** (28); **gabe askatu** (12); **gerrikoa askatu** (11); **herria askatu** (13); **iñaki uria askatu** (19); **korapiloa askatu** (18); **ondoren askatu** (12); **presoak askatu** (22)
>
> **askatua izan** (13)
>
> **gora euskadi askatuta** (21)
>
> **askatuz gero** (15)

---

askatxo *iz* aska txikia.

Bazter batean ohea, bestean komuna eta eskuak xahutzeko **askatxo** bat bere ispiluarekin. Gotzon Garate

---

askatzaile *izond/iz* askatzen duena; bereziki, norbait inoren mendekotasunetik ateratzen duena; norbaiti, batez ere herri bati, askatasuna eman dion pertsona.

Ez du baztertzen Bev Shaw, barren-barrenean, aingeru **askatzaile** bat ez baizik deabru bat izatea, erruki itxuraren azpian harakin batena bezain bihotz gogorra ezkutatzea. Oskar Arana

Larrialdian **askatzaile** eta mesedegile den Jauna goresteko deia. Elizen arteko biblia

Neuk laguntzen dizut; ni, Israelen Jainko santua, nauzu **askatzaile**. Elizen arteko biblia

Jauna da nire haitza, nire geriza, bera nire **askatzailea**.

Israelen Jainko santua da zure **askatzailea**: lur osoaren Jainkoa deritza. Elizen arteko biblia

Eta zure **askatzailearen** izena jakitearren saiatzen ez zarenez gero, hara bada, jakin ezazu, Don Kijote Mantxako dela nire izena, zaldun ibiltari eta borrokazalea. Patxi Ezkiaga

Bat egin dezagun gure **Askatzailearekin** hain gartsuki eta beragana argi hain distiratsuak eraman gaitzan. Imanol Unzurrunzaga

Obra horrek ederto islatzen ditu gure lotura emozionalak, ahalmenak eta mugak, emakumeen arteko adiskidetasunaren balioa, familia-bizitzaren mendekotasuna, amodio **askatzailea** eta suntsitzailea. Ana Urkiza

Hitzak eta hizkuntza elkarren arteko konbentzioa omen dira, baina hala ere: ez dago hitz **askatzailerik** aldi berean lotzen ez duenik; ez dago horko bazter hori edertu arren hango hura desitxuratzen ez duen metaforarik. Anjel Lertxundi

Sarritan aipatu da Israel, Aljeria, eta beste mugimendu **askatzaile** indarkeria erabiltzen zutenen eragina ETArengan. Joseba Zulaika

Zergatik zen komunista, zergatik yogaren eta ekialdeko filosofien zale, zergatik barazkijale, zergatik borrokatzen zen heziketa **askatzaile** eta duin baten alde. Juan Kruz Igerabide

Eta zer gertatu zitzaion Idoiari, zer ostia gertatu zen nire harreman **askatzaile** eta bizigarri hartan, mundua irensteko ahalmena ematen zidan hartan guztian? Juan Kruz Igerabide

Bai baitzekien, Jesusen eskolan ikasita, maitasuna dela munduan indar **askatzaile** eta berritzaile bakarra. Askoren artean

Ez dakite miresten zigorra hartzeko gauza denaren ausardia **askatzailea**, ezin dute psikopata konprenitu. Koldo Izagirre

Airearen zafrada **askatzailea** sentitu nuen aurpegian, eguzki izpien epela. Harkaitz Cano

Lukreziok, horrela, aurrea hartzen die poesian bere helburu **askatzailearen** aurka baliatua izan zitekeen berezitasuna ikusi nahi dutenei. Xabier Amuriza

Kode berriak **askatzailea** izan nahi badu, bestelako kode hegemonikoen errautsetatik -hondakinetatik, alegia- sortu behar da, eta beste formula batzuk aurkitu bere mezua plazaratzeko. Txema Ramirez de la Piscina

Planteamendu horrek, hasieran behintzat, ondorio **askatzaileak** izan zituen Agustinen ikuspegiekin alderatuz gero. Askoren artean

Herrialdeko ereserkia Maracanako estadioan, gaueko bederatziak puntuan, jokatzear zegoen **Askatzaileen** Kopako finalaren atarian. Aritz Gorrotxategi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **laguntzaile eta askatzaile** (3)
>
> **askatzailea izan** (4); **zure askatzailea** (3)
>
> **bizi eredu askatzaileak** (4); **zure askatzaileak** (3)

---

askatze *iz* loturik edo nolabait itsatsirik zegoenak egoera hori uztea edo halakoari utzaraztea.

Askatze hori ez dela barkaberatasunezko neurri bat azpimarratu zuen, legeak berak aitzinikusten duen zigor antolamendua baizik. Berria - Euskal Herria

Ohoragarria da, ohoreetan kuttunena naski, herriaren **askatze** eta salbatze bidean sartzea. Itxaro Borda

Iban Zubiaurreren kasua **askatze** bidean da. Berria - Kirola

Eta horixe da jolasa: bere eskuko esanen talka bat, esaldien josi-**askatze** bat, esanahien elkar-urratzea eta hotsen gurutzatze atzenkorra. Iñaki Segurola

Joan Frantzisko Petriarenaren, Xenpelarren, jaiotze urtea lagungarri gerta dakiguke korapiloa **askatze** aldera. Berria - Kultura

Abokatuak joan den abenduan lehen **askatze** eskaera helarazi zion epaileari. Berria - Harian

Gauza bata eta bestea **askatze** -agiriek arautu zituzten; agiri horiek gure ohituren parte bat osatzen zuten, eta parte hori idatzita geratu zen. Iñaki Iñurrieta

Horregatik, arrazoimena teoria sofistikoetatik **askatze** honek zailki lortuko du bere gogobete osorako behar den nabaritasuna. Ibon Uribarri

---

askazi *(ETCn 286 agerraldi) iz* ahaidea.

Ainitz jende bildu da ehorzketan, bai **askazi**, bai herritar, bai adixkide eta lagun. eta, meza hunkigarri batean parte hartuz, guziek lagundu dugu gure otoitzez. Herria

Orotarik maitatua eta estimatua, ehorzketa egunean, **askaziak** eta herritarrak bildu dira elizarat, meza kartsu batean parte hartuz otoitz egiteko Kaiet zenarentzat. Herria

Elkarren **askazi** ziren, zeren eta Azpilkuetako dorrearen ondo abartsutik baitzetozen biak. Piarres Xarriton

Aita Martin-i gertatu zitzaion bere **askazi** agramondarren hondamendia ikustea eta gero Karlos enperadorearen itzalean kokatzea. Piarres Xarriton

---

askazigo *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1) iz* ahaidetasuna.

Hiru ehun kideko **askazigo** erraldoia bildu zen ondorioz, ni gabe, herriko elizaren kalostrapean. ETC-prentsa

---

aske *(ETCn 41.266 agerraldi)* **1** *izond* askatasuna duena, inoren mendean ez dagoena. ik **libre**; **libro**.

Esaten zuen kurdu jaio zela, lur **aske** batean. Juan Kruz Igerabide

Hainbat ekintzatan, «Euskal Herri **askea**» aldarrikatu du gazte erakundeak. Berria - Euskal Herria

Bestetik, irakaskuntzak ez duen ondorio onuragarri bat izan dezake jakintza hedatzeak: herritar ororen esku egonik, gizarte osoaren kultura maila garaiagoa da, eta hori, funtsezko osagaia da gizarte demokratiko, **aske** eta partehartzaile baterako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Elkarren maitasunez **askeak** zirela uste izan zitean, eta zorion hark **askeak** zirela sinesteko segada jarri ziean. Jon Muñoz

Bereziki, (10iii) bezalako hizkuntzak, testuinguru **askeko** erregelak darabiltzan osagai-egiturazko deskribapenaren ahalmenetik harago daudenak, formaldatzeen bitartez erator daitezke. Itziar Laka

Orduan bera **askeago** sentitzen baitzen edozein gauza idazteko eta horrelaxe egiten zuen. Joxemari Iturralde

Har ditzagun esperientzia eta alegoria lagun, eta eska dezagun hiri zuzenena, hiri **askeena**, hiri ederrena. Joseba Zulaika

Hor ikasi zuen bidenabar Otsabide ez bezala, 1942ko azaroaren 11 arte gunalde **askean** zegoen Arbide ere okupatu zuela aleman armadak. Itxaro Borda

Gero hegoalderago jaitsi da, Turkestan **askeraino**. Karlos Zabala

Herri konkistatuek eta herri **askeek** betidanik hitzartu dute, euren arteko hitzarmen eta itunetan, bakoitzaren legeria zibila zaintzea. Andres Urrutia

Gizon **askea** da bere pentsamenduaren mugaraino joateko beldur ez den hura. Fernando Morillo

Lege horiek, De Cive-ren arabera, estatua sortu aurretikoak dira: gizon **askeen** arteko itunetik sortu dira, herritar izango direnen artetik. Esteban Antxustegi

Ikara eta euforia egun haietan neure buruaz lotsarazten ninduten gizon eta emakume asko ezagutu nituen, gazte eskuzabalak bihotz emonak espiritu **askeak**. Koldo Izagirre

Adio jende **askea**, adio etxea; adio tronua. Agustin Otsoa

Ikur linguistikoa arbitrarioa denez, badirudi modu horretara zehazturiko hizkuntza sistema **askea** dela, nahierara antola daitekeena eta soilik hastapen arrazional baten mendean dagoena. Isabel Arrigain

Bai, herritarrok, bai; erlijioa eta sistema **askea** bateraezinak dira; badakizue hori. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Platonen ustez, jakite politikoa jakite filosofikoaren mende dago; Aristotelesekin, aldiz, politika **askea** da, autonomoa. Askoren artean

-Gizon **askea** nauk, hire mintzaldietan hainbeste aipu dituan horietarik bat, eta ene biziarekin nahi dudana egiten diat, nehori esplikaziorik eman gabe. Elena Touyarou

Adats **askea** bi eskuekin goitik behera lizunki laztantzen zuen bitartean justu zer galdera egin nion ahaztu egin zitzaidala ohartu nintzen. Joxean Agirre

Berez **askeak** diren bi hitz (edo gehiago) elkartuz, unitate lexiko berria sortzen du hitz elkarketak. Iñaki Arranz

2 (adizlagun gisa)

Bost gazteek zaletasun ezberdinak zituzten eta mihiak **aske** zerabiltzaten. Irene Aldasoro

Horietatik bi espetxeratzeko agindua eman zuen Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak eta hiruri, bermea ezarri zien **aske** irten ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Herriak heroi moduan hartzen zituen **aske** geratutako presoak, eta nik aipatutako bi horiek, gero lagun handi egin nituenak, gelara gonbidatu nituen, eskola orduak amaitu eta gero. Joxerra Garzia

Emakumeak banan-banan begiratzen die guztiei, eta **aske** dagoela ohartzen da. Javi Cillero

Bien maitasunaren puzzlea osatu arte ez zela **aske** izango. Jasone Osoro

Fusilaren hedea **aske** zeukaan bizkarretik zintzilik, eta burua gureganantz makurtuta, zuzen begiratzen ziguan, begiak zabal-zabal, dena gogoratu nahiko balu bezala, eszena hura bere begien barrenean finko inprimatuta gordetzeko. Josu Zabaleta

Eta alde batetik bilau eta zikin sentitzen banintzen ere, bestetik **aske** eta garbi nengoen. Alberto Ladron Arana

Bere kontrolpetik **aske** geratu nintzen, bestela ezingo nuen nik egin nahi nuena burutu. Pako Aristi

Fidantzapean **aske** badaude desagertu egingo dira. Oskar Arana

Programa akademikotik **aske** ibili zale, ikasleokin kolega gisa jokatzea gustatzen zitzaion. Anjel Lertxundi

Izualdi haren ondoren beste bat etorri zen, biok **aske** geratutakoan eztabaidatzen aritu baitziren "piztia arriskutsuari" txerto hilgarria sartzea komeniko ez ote zen. Jon Arretxe

Zenbait urtetan **aske** ibili naiz, egunerokotasunean bortxatua sentitu gabe bizi izan naiz, argitasuna eta biok aurrez aurre, naturari begiratzeko eta neure buruarekin egoteko behar bezainbeste denbora hartuz... Patxi Zubizarreta

3 (erkaketetan)

Hala ere, uste dut nik irakatsi nahi diodana ez dela beti bat etorriko berak jasotzen duenarekin, pertzepzioen mundua oso subjektiboa izanik, ura bezain **aske** eta iheskorra ere badelako. Ana Urkiza

Begira: zaldiek gutxiago sufritzen dute gizakiek baino, eta **askeagoak** dira, erantzukizun gutxiago dutelako. Karlos Linazasoro

Narratzailearentzat, gizakien artean badira mailak: Marcel Martin eta Victoria bera baino gorago daude, ulergaitz zaizkion erreferentziak darabiltzate, **askeagoak** dira, zintzoagoak, bera baino. Markos Zapiain

Elizbarrutiko apez xumeena apezpikua baino **askeago** da, bereziki abertzalea balin bada. Piarres Aintziart

Aske sentitzen naiz, espetxean ez banengo bezala, bizitza osoan giltzapeturik eduki nauten espetxe batetik irten berria banintz bezain **aske**. Jose Morales

Badakit, baita ere, hiltzailea edo hiltzaileak oraindik kaioak bezain **aske** dabiltzala -gogorarazi zien-. Migel Angel Mintegi

4 *aldagai aske*

Horiek, unibertso batean interpretatzean, egiazkoak edo faltsuak izango dira, baina **aldagai askeak** dituztenek, aldiz, aldagaia nola interpretatzen den horrela izango dute egia-balioa. Askoren artean

5 *amodio aske* *(corpusean ez dago; ETCn 10 agerraldi)*

Amodio askea amodiozko harremanak ezkontza erlijio, estatu nahiz ideologia orotik ezarritako erakunde orotik kanpo bizitzea aldezten duen jarrera eta gizarte-mugimendua da. ETC-entziklopedia

Adibidez, hippien garaian, underground eta kontrakultura mugimendua eman zenean, **amodio askea** aldarrikatzen zenean, emakumeek jasandako ekintza larriak kontatzen

dira. ETC-prentsa

Party haiek, eta egin nahi genituen gauzak: komunetan bizi, iraultza sexuala, **amodio askea** ; Marck ez da izan sekula **amodio askearen** aldekoa baina. ETC-literatura, saiakera

6 *aske utzi*

"Ona da drogak **aske uztea** nornahik har ditzan?" bezalako galdera soilen ordez, orain badirudi kontuak nahasiago gertatzen zaizkigula: biziaren garapenean parte har dezakegu? Pello Salaburu

Hirian sartu ziren, nehon gelditu gabe, eta portu bazterrera iristean, zaldiak **aske utzi** zituzten. Elena Touyarou

Sarekadan harrapatu anitz **aske utzi** zituzten biharamunean berean. Itxaro Borda

Aitorren atxiloketari dagokionez, berriz, zer nahi duzue esatea? Letra handi-handiz atxilotu dute, eta baliteke egun batzuk barru letra txiki-txikiz **aske uztea** . Joxerra Garzia

Irudimena **aske utzi** eta kanpaia jotzen hasi nintzen haren kutixien arabera. Aitor Arana

Nobela amaitu arren ez dute idazlea **aske utziko** , irakurleen artean arrakasta lortzen duen arte itxoingo dute. Joxean Agirre

Ez zituzten, horregatik, bagoi andeatuko ehun ta hirurogei presoak **aske utzi** . Eneko Bidegain

Handik egun batzuetara, **aske utzi** zituzten. Juan Kruz Igerabide

Epaileak, galdeketak berriro errepikaturik, dendaria errugabea zela ohartu eta **aske utzi** zuen. Josu Zabaleta

Aita freudiarraren zeregina ere horixe zen: ezin da plazeraren printzipioa erabat **aske utzi** . Joseba Zulaika

Ene gogoetak paper batetara lotzen ditut eta, aldi berean, **aske uzten** ". Anjel Lertxundi

-Annie Ebrel da.. . erran zuen ahapez bezala eta Ahotsaren oihartzun samurrak gela hantzen zuela, bazterrez bazter, kontrabaxuak bozak **aske utzi** isiluneak betetzen zituela. Itxaro Borda

Baina umetxoarena bezalako beso meharra sentitu zuen hatzen azpian eta **aske utzi** zuen. Koldo Biguri

1693. urteko maiatzerako epaiak amaitu ziren eta epaitzeko geratzen ziren 9 sorginak **aske utzi** zituzten. J.M. Olaizola "Txiliku"

7 *aukera aske*

Esakune problematikoa, beraz, (objektiboa ez den) ahalgarritasun logikoa baino adierazten ez duena da, h.d., halako esakunea onartzeko **aukera askea** , bere hautazko onarpen soila adimenean. Ibon Uribarri

8 *bektore aske* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Elkarrekin ekipolenteak diren bektoreen multzoa **bektore aske** bat dela esaten da, eta luzera, norabide eta noranzko berdinarekin definitzen den bektore bat da, jatorriko eta helmugako puntua gorabehera. ETC-entziklopedia

da T zorizko **bektore askeen** zt=Xtut batezbestekoa; batezbestekoak zero dira, eta bariantzak (2XtX't, (ikus baldintza nahikoak 8.A eranskinean). ETC-zientzia, zuzenbidea

b) Aurreko atalean lortu ditugun ^ parametroaren balioetarako, ^, 0,1^, ^ sistema askea izateaz gain ^-ko oinarria ere bada, ^ espazio bektorialaren dimentsioa 3 baita eta sistema hiru **bektore askez** osatuta baitago. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *bertso aske*[1] *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Bertsoak gizartean hartu duen indarra ikusita baliteke posible izatea **bertso askea** oztopatu nahi izatea. ETC-prentsa

Poeta hau Brasilgo onenetan kokatu dute adituek, hitzarekin ez duelako maniobra eta artifizio arrarorik egiten, **bertso askea** darabilelako. ETC-prentsa

Ordura arte poesia arabiarrak landutako errima klasikoa gainditu, eta **bertso askeko** poesia idazten hasi zen. ETC-prentsa

Nerabezaroan, ordea, hainbat estilo moderno aztertu zituen; esate batera, **bertso askea** , Shinkichi Takahashi poeta dadaistak eta Taré Tominaga-k hagitz laudatua. ETC-entziklopedia

10 *bertso aske*[2] *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Feminista, aurrerakoia, euskalduna eta oraindik PSNko **bertso askea** , baina denbora gutxirako. ETC-prentsa

11 *eduki aske* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Eduki askeko 50 GB eta 20 ekitaldi baino gehiago izango dira; 50 pertsonatik gora lanean egongo dira. ETC-prentsa

Teknologia berrien eremuan eginiko asmakizunengatik ez eze, Interneteko **eduki askeen** alde eginiko lan eskergatik ere egin zen ezagun, **eduki askeen** abokatu gisa ezagutzeraino. ETC-prentsa

Beraz, sarean libreki kontsulta dezakegun entziklopedia bat da, eleanitza, web-orriduna eta **eduki askekoa** . ETC-literatura, saiakera

GNU Free Documentation License (GFDL) (Dokumentazio Librearen Lizentzia) **eduki askerako** copyleft software lizentzia lizentzia bat da, Free Software Foundationek GNU proiekturako sortutakoa. ETC-entziklopedia

Wikibooks (euskaraz, Wikiliburuak) **eduki askeko** liburuak sortu eta plazaratu egiten dituen Wikimedia Fundazioa Wikimediaren proiektua da, edonork edukiak gehitu eta aldatzeko aukera eskaintzen duena. ETC-entziklopedia

Gainera Wikimedia proiektuak **eduki askea** eta Wiki kultura sustatzeaz arduratzen dira. ETC-entziklopedia

Wikiztegia (ingelesez, "Wiktionary") **eduki askeko** hiztegia sortzea helburu duen Wikimedia Fundazioa Wikimediaren proiektuetako bat da, edonork edukiak gehitu eta aldatzeko aukera eskaintzen duena. ETC-entziklopedia

12 *elektroi aske*

Azkenerako, Baggio Juventuseko ikur eta kapitain bilakatu zen, **elektroi aske** moduan. Berria - Kirola

13 *energia aske* *(corpusean ez dago; ETCn **402** agerraldi)*

Sortutako ika-mikagatik, ordea, kontuak eman zituen atzo: Gibbsen **energia askearen** balioa eta Hessen legea badirela curriculumaren zati. ETC-prentsa

Viktor (1885-1958) baso ingeniari eta asmatzaile izan zen eta basogintza, nekazaritza, hidrologia, uraren biziberritzea, **energia askeak** , etab. ikertu zituen. ETC-prentsa

Zaila da bietako bakoitza zehatz kalkulatzen, eta, hala ere, egitura posible ororen **energia askea** kalkulatzeko, haien arteko aldea kalkulatu beharra dago. ETC-literatura, saiakera

Zeren, ohiko interpretazioaren arabera, ez baitirudi sistemaren " **energia askea** " hormaren eta esekitako gorputzen posizioaren mendekoa denik. ETC-literatura, saiakera

Jeinuak egiaz, giza espirituaren **energia askeen** eta garaien bezala, indibidualitatearena bakarrik izan behar du eta genero karakterrean aldioro trabak aurkituko ditu. ETC-literatura, saiakera

Gibbs **energia askea** zein **energia askea** deritzo maiz Gibbs energiari. ETC-zientzia, zuzenbidea

Energia askea lortzea da haien helburu nagusia, eta, horretarako, elikagaien erabilera azkartzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

ATP molekula oso garrantzitsua da, zelularen metabolismoko erreakzio kimiko askotarako behar den **energia askea** metatzen baitu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Milaka adibide jar ditzakegu arlo desberdinetan: sistemaren **energia askea** , zatitzaile komunetan handiena, polinomioaren bigarren deribatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oreka beste oinarrizko kontzeptu bat da, eta **energia aske** deritzon magnitude termodinamikoaren bidez definitzen da ongien. ETC-zientzia, zuzenbidea

14 *erabakimen aske* *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi)*

Filosofian, **erabakimen askea** gizakiak bere erabakiak eta ekintzak bere baitan edo mendean daudela ezartzen duen pentsaera da; determinismoa ez bezala, zeinak borondatea zenbait indarren mendean daudela baieztatzen baitu. ETC-entziklopedia

Nobelagilearen asmoa zen, nolabait, gaizkilearekin enpatizatzea; eta, bide batez, **erabakimen askeari** buruzko irakurketa morala eragitea, hain zuzen, etika judu-kristauaren ildotik. ETC-literatura, saiakera

Eta, jakina, animalia guztien artean askeena gizakia da, gainerako animaliek ez daukaten **erabakimen askea** daukalako. ETC-literatura, saiakera

Eta gure nortasuna, osoko eskubidea duen subjektu politikoa eta bere **erabakimen askea** aitortua izateko abiapuntua. ETC-prentsa

Pertsona horrek bere **erabakimen askearen** arabera egin behar duela beharrizanaren balioestea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Neurri handi batean, objektuaren autokontzientzia errepresentazio-esparruaren hautemate-kontzientzia baino ez da, esparru erreferentzialaren subjektu estetikoaren

erabakimen askea . ETC-zientzia, zuzenbidea

"Hautuaren **erabakimen askea** " gauzatzeko "borondatearen askatasuna" eman behar da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jende ez gutxik esan du zientziak erakutsi duela ez dagoela **erabakimen askerik** . ETC-zientzia, zuzenbidea

15 *erorketa aske*

"Eneko: **erorketa askearen** antz handiagoa dik ariketa honek tiro parabolikoarena baino! Joan Mari Irigoien

16 *erradikal aske*

John Hopkins Unibertsitateko zientzialariek azaldu zutenez, bi bitamina horiek **erradikal askeak** deituriko molekula kaltegarriak suntsitzen dituzte, gaitzaren prozesua motelduz. Berria - Gaiak

Osasun aldetik: zerk egiten digun kalte, zerk mesede, etc; jangaien makro- eta mikro-nutrienteak (proteinak, **erradikal askeak** , karbohidratoak, mineralak, aminoazidoak etc.). Edorta Agirre

17 *eskalada aske* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Helburua lortzen badute, lehen aldia litzateke **eskalada askean** bide hori egiten dela. ETC-prentsa

Azkenik, Fly or die lanak Dean Potter-en bi pasioak erakusten ditu, **eskalada askea** , eta Base jauziak. ETC-prentsa

Eskalada askea : eskalatzen gauden heinean, horman aurki ditzakegun laguntza artifizialik gabe egiten den progresioa da. ETC-entziklopedia

18 *hautamen aske*

Hautamen librea ezartzen askatasuna ezabatzen duen halabeharraren pean. Imanol Unzurrunzaga

Ez du **"hautamen** aske" delakotik ezer ere. Juan Garzia

Guk gaitza egitea gure **hautamen** libretik zetorrela. Imanol Unzurrunzaga

· Gauza kreatu guztientzako ezaxolak izan behar dugu, gure **hautamenaren** aukera libreari zilegi eta debekatua ez zaion guztian. Patxi Altuna

19 *irrati aske* *(corpusean ez dago; ETCn **135** agerraldi)*

Irrati askeak , eremu elektromagnetikoaren okupazio librea aldarrikatzen duten irratiak dira. ETC-entziklopedia

Dial horretan 18 urtez emititu izan du Radio Bronka **irrati aske** eta libertarioak. ETC-prentsa

80ko hamarkadan Euskal Herrian izan zen **irrati askeen** loraldian jaio ziren, eta, lanari esker, irrati dialean irautea lortu dute. ETC-prentsa

Irrati aske eta lokal batzuek aukera hau erabiltzen dute, Dialeko puntuan duten tokia egunean zehar bete ahal izateko, entzuleak beren seinalea gal ez dezan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baliabide gutxiko emandegiek egunean zehar 24 ordu betetzeko izaten duten programazioari dagokio "saski-naski" izeneko hau; hauxe da, adibidez, tokiko emandegi eta **irrati askeen** kasua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrez gain, lehendik ere banuen informazioa, horrelako emisora batean lan egin nuelako 1984/85 ikasturtean eta Orion egindako **Irrati Askeen** Lehenengo Topaketan ere egon nintzelako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Irrati askeen mugimendua 1970eko hamarkadan sortu eta garatu zen Europan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Irrati Ekoizpen Zentro moduan, 2001ean abiatutako ekimenari hogei bat **irrati aske** eta komertzial batu zaizkio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arantza Gutierrezek Euskal Herriko irratiaren historia sakonki jarraitu du (2002), baita **irrati askeen** eta komunitarioen garapena eta eboluzioa ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

20 *konkurrentzia aske*

Zerbitzu publikoen defentsa egiten dute, eta " **konkurrentzia askearen** » proiektua arbuiatzen. Berria - Euskal Herria

21 *kutxa fluxu aske* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Kutxa Fluxu Askea modu askotan kalkula daiteke, baina ohikoena honako hau da: ETC-entziklopedia

22 *kutxako fluxu aske* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Finantza korporatiboan, **kutxako fluxu askea** , entitate korporatibo batek, bere balio-edukitzaile guztietatik, banaketarako erabilgarri dituen kutxako fluxuak begiratzeko era bat da. ETC-entziklopedia

23 *lerro aske* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Lerro askea olerki-hizkuntzaren adierazpide poetiko garaikidea da, estrofa tradizionalek ezartzen zituen mugak gainditzeko modua bezala sortuta. [...] Esan daiteke **lerro askea** prosa poetikotik oso gertu dagoela baina tipografiaren ikuspuntutik poetak lerroen itxura formala gordetzen du, hau da, lerroen arteko pausak. ETC-entziklopedia

Lerro zuria eta batez ere **lerro askea** zabaltzen hasi zirenetik, orrialdearen bi aldeetatik marjinak oso zabalak egitearekin -eta testua justifikatu gabe uztearekin, noski-, edozer gauza izan daiteke poesia. ETC-literatura, saiakera

Soneto ingelesen forman (4-4-4-2) azkeneko bikoak poema ondo ixteko balio duen gisara, eibartarraren azkeneko lerroek funtzio antzekoa betetzen dute, nahiz eta **lerro askea** darabilen beti. ETC-prentsa

24 *merkatu aske*

Merkatu askeagatik Europak nahi duenari gehiegi iritzi dio MMEk. Berria - Ekonomia

Mercosurrek handitzen eta indartzen jarraitzen badu, Estatu Batuek beraiek diseinaturiko ALCA Ameriketako **Merkatu Askerako** Akordioak ez du etorkizunik izango. Berria - Harian

Truke-tasa finkoa eta **merkatu askea** atxikitzen baditu, bi horien arabera ezarri beharko du diru politika. Iñaki Heras

Horiek, bistan da, barne mugarik gabeko estatua behar dute, eta **merkatu aske** baten gogotan dabiltza. Andres Urrutia

Merkatu askearen filosofiaren menpe uzten ditu gizarte premiak. Berria - Euskal Herria

Merkatu askeko politikei eutsiko zietela iragarri zuten. Berria - Mundua

25 *orpo askeko eski* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Telemark eskia edo **orpo askeko eskia** eski-teknika bat da, alpetar eski eta eski nordikoaren osagaiak nahasten dituena. ETC-entziklopedia

26 *partikula aske* *(corpusean ez dago; ETCn **40** agerraldi)*

Fisikan, **partikula askea** inolako kanpo-indarrik nabaritzen ez duen partikula da. ETC-entziklopedia

Translazioaren uhin-funtzioa zera da: molekularen masa duen **partikula aske** batek (edota oso kutxa handi batean dagoen partikula batek) lukeena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haizeak bi mekanismoren bidez higatzen du: a) deflazioa, **partikula askeak** arrastatzea eta hustea eragiten duena, eta b) korrasioa (edo abrasioa), higadura haizeak daramatzan partikulek eragiten dutenean. ETC-zientzia, zuzenbidea

E=hf ekuazio ezagunaren analogia bat baliatuz, formula sinple bat idatzi zuen De Broglie-k **partikula aske** bati zegokion uhin-luzerarentzat (beraren gain eragiten duen indar garbirik ez denean deritzo partikula bati aske). ETC-zientzia, zuzenbidea

Momentu angeluar hori esleitzeko, lerro zuzen batean zehar p momentu konstantean higitzen den **partikula aske** bat kontuan hartuko dugu, eta bai O jatorria deituko diogun puntu bat ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Era horretara, atomoaren, edo nukleoaren, osagaiak bakartu eta **partikula askeak** bezala azter daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

27 *piñoi aske* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Piñoi askea ardatz bati noranzko batean aske biratzea eta kontrako noranzkoan engranatua izatea ahalbidetzen dion mekanismoa da. ETC-entziklopedia

28 *software aske* *(corpusean ez dago; ETCn **152** agerraldi)*

Software askearen alde azaldu dira Donostian. ETC-prentsa

Gainera, **software askea** erabiltzen du musika egiteko, eta hori gaur egun bultzatu beharrekoa iruditzen zait. ETC-prentsa

Hala ere, lehen copyleft lizentzia legala **software askearen** aita gisa hartua den Richard Stallmanek sortu zuen GPL (General public license) izenarekin. ETC-prentsa

Filma Euskal Herrian **software askea** garatzen ari diren pertsonetan oinarritua dago. ETC-prentsa

Kulturklikeko lan taldeak sortutako eduki guztiak Creative Commons 3.0 by-nc-sa lizentziapean egongo dira, eta **software askeko** tresna erabiliko dute: WordPress. ETC-prentsa

Era horretan, **software askeko** sistema eragilea eta ohiko erabilerarako tresnak euskaraz izango dituzte erabiltzaileek. ETC-prentsa

Ondoren, horiek euskaraz lortzeko nora jo behar dugun jakin nahi izan dugu eta azterketa horretan ari ginela, **software askearekin** egin dugu topo. ETC-prentsa

Bestalde, **software askearen** aldeko apustua egitea erabaki dugu, eta OpenOffice ofimatika paketea instalatu dugu. ETC-prentsa

Badirudi ez dugula asko egiterik, baina aholku orokor bat ematearren, **software askeko** sistemak gero eta gehiago erabiltzea autodefentsarako egokia izan daitekeela uste da. ETC-prentsa

Software askea eta ekarpenak modu ez-murriztaile batean argitaratzeko saiakera handia egin zuen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Audrey Tang, Autrijus Tang jaiotza-izenez, taiwandar **software aske** programatzailea da. ETC-entziklopedia

Software askea duten lizentzia askok (BSD Sistema Eragileak, X Leihoko Sistemak, Apache zerbitzu guneak... duten lizentziak, adibidez) ez dira copyleft lizentziak, nahiz eta erabiltzaileari berrikuntza berriak transmititzean lizentzia mota berdina jartzea ez dio derrigortzen. ETC-entziklopedia

Kritikoak Raymondek bere sustapen pertsonalerako software libre edo **software askea** bahitu duelako salatu dute. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aske atera** (22); **aske behar** (15); **aske bizi** (11); **aske dago** (15); **aske gelditu** (57); **aske geratu** (90); **aske irten** (30); **aske irtetea** (11); **aske izan** (21); **aske jarri** (25); **aske utz** (34); **aske utzitako** (16); **aske uztea** (55); **aske uzteko eskatu** (71); **baldintzapean aske** (55); **behin behinean aske** (27); **berehala aske uzteko** (18); **bermea ordainduta aske** (14); **bermepean aske** (16); **euskal presoa aske** (14); **herri aske** (13); **iñaki uria aske** (16); **kargurik gabe aske** (28); **ondoren aske** (11); **ordainduta aske** (15); **presoak aske** (13); **utzi zuten aske** (26)
>
> **askea da** (12); **herri askea** (13)
>
> **merkataritza askearen** (18)
>
> **merkataritza askerako** (16)

---

askenahi *iz* aske izateko nahia.

Behin bere buruz galdera intimook egiten ikasiz gero, handik aurrera libertsio hutsa litzake haurraren bizia, bere buruz **askenahi** izate hutsa. Patziku Perurena

---

askenahitasun *iz* aske izateko nahitasuna.

Non gelditu da **askenahitasun** indigena hura? Joxe Azurmendi

---

askenazi *(corpusean ez dago; ETCn **71** agerraldi) izond/iz* Europa ekialdeko edo erdialdeko judua.

Askenaziak, Alemaniako Rhin ibaiaren arroan, hegoaldeko Alsaziatik iparraldeko Renaniaraino, Erdi Aroan bizi ziren juduen ondorengoak dira. ETC-entziklopedia

Ez nuen haren hilobia kanposantu juduan aurkitu, ezta **askenazien** parte abandonatuan ere. ETC-literatura, saiakera

Gehiagotasun xalo batekin gutxiesten zituzten beste juduak, mespretxuz betetako hitza zen todesco, judu alemana edo **askenazia**. ETC-literatura, saiakera

Hirian ehunka urte lehenagotik judu espainiarrak bizi ziren, sefardiak, Drinaren gaineko zubia egiten ari ziren garaian hona aldatuak, baina orain, haiez gain, Galitziako judu etorri berriak zeuden, **askenaziak**. ETC-literatura, saiakera

Familia judu ugari bizi zen Flatbush auzunean, batzuk **askenaziak** eta beste batzuk sefardi edo ladinoak. ETC-literatura, saiakera

Hortaz, bart ziren ofizial egitekoak Shaseko ultraortodoxo sefardien eta Tora Judaismo Batuko ultraortodoxo **askenazien** kargugabetzea. ETC-prentsa

Judu **askenazien** artea, jiddishez idatziz, Bashevis Singer komunitate baten ahots bihurtu zen. ETC-prentsa

Klezmer musika, judu **askenazien** musika tradizionala, joko dute zuzenean, eta akrobaziak, eskujokoa eta zirkuko beste zenbait ariketekin osatuko dute ikuskizuna. ETC-prentsa

Horren arabera, aurrerantzean, neskato **askenaziek** sefarditekin batera ikasi beharko dute Beit Yakov eskolan, okupatutako Zisjordanian. ETC-prentsa

Smolenskinek ez bazekien ere, Palestinako judu sefardiek eta **askenaziek**, XV. mendeaz geroztik, hebreera lingua franca gisa erabiltzen zuten, sefardien ahoskatzearekin, gainera. ETC-prentsa

---

askenaztar *izond* juduez mintzatuz, Europa erdialdekoa.

Judu **askenaztarrak**, jatorriz, Europako ekialde, iparralde eta erdialdekoak dira. Fernando Rey

Gure aita judu **askenaztarren** nahiko aldeko agertzen zen beti. Fernando Rey

Ni, judu **askenaztarra** naizenez, ez naiz honen itsusia. Fernando Rey

---

askespen *iz* barkatzea; bereziki, aitor-entzuleak aitortzaileari bere bekatuak barkatu zaizkiola, edo epaileak auzipetuari errugabe dela adieraztea.

Orain zure kontzientziak behar du ene **askespena** zigilatu, eta laguntzat behar nauzu kokatu zeure bihotzean; entzun baituzu,eta belarri ernez aditu, nola zure aita noblea hil duen horrek niri nahi zidan kendu bizia. Juan Garzia

---

asketsi, askets, askesten *(corpusean ez dago; ETCn **32** agerraldi)* du *ad* absolbitu.

Ez dut aukera hau huts egin behar: **asketsiko** dute mutila, horretan ez dago dudarik, eta mendekatzeko ez ditut nik egun gutxi batzuk baizik. ETC-literatura, saiakera

Esate baterako, esan izan zen Arendtek Eichmann erruaz "**asketsi**" zuela, eta "juduak kondenatu". ETC-literatura, saiakera

Bekatariak, urpekariak beste, **asketsiak** izateko eginak dituk. ETC-literatura, saiakera

Hain nabarmena da kontua, non askoren arabera prozesua bertan behera utzi beharko baitute edo, bestela, egin bai, baina gehienak **asketsiz**. ETC-literatura, saiakera

Tenplarioa gazte batek, egun gutxi lehenago hona preso ekarri eta Saladinok **asketsi** zuen batek. ETC-literatura, saiakera

Hiriaren aurka ere herraz mintzo zen, zer pertsonalengatik, Teofilo zelako bat, areopagoan faltsukeriagatik kondenatua, bere erreguz **asketsi** ez zutelako. ETC-literatura, saiakera

Instrukzio epaileak onetsi zituen telefono entzuketak balio gabe utzi zituen epaiketan Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak, eta akusatuak **asketsi** egin zituen ondorioz. ETC-prentsa

2001ean protestak egin zituztenei tratu txarrak emateagatik auzipetuak zeuden beste 30 polizia **asketsi** egin dituzte . ETC-prentsa

Ikusi berri dugunez, hizpidera ekarri ditugun babes horiek ongi frogatzen dutenez, epaitu aurretik ere Laborantza Ganbera **asketsi** egin dute herritarrek eta herri ordezkariek. ETC-prentsa

Epaiketaren eta herri epaimahaiaren kondenaren ostean, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, bere izen onaren lotsagarri, **asketsi** egin zuen Pilar Rubio, Anjelen hilketa

eragin izatetik. ETC-prentsa

Konparazio batera, Alemaniak eskatu zion Gernikari 37ko bonbardaketagatik, eta udalak **asketsi** zuen. ETC-prentsa

Kasualitatez, egun berean Moskuko auzitegi batek **asketsi** zuen Memorial elkarteko buruzagia: salatua zuen Estemirovaren hilketaren erruduna Txetxeniako presidente Ramzan Kadyrov dela. ETC-prentsa

Hirurak **asketsi** dituzte "ingurumenaren aurkako delituez". ETC-prentsa

1996an, Albanian zegoen kaosaz baliatuz, espetxetik ihes egin, eta Suediara jo zuen babes bila. 1997an, **asketsi** egin zuen Tiranako epaitegi batek. ETC-entziklopedia

---

askezale *izond* askea izateari zaletasuna diona.

Espainian urtotan eraiki den mitologia nazional liberalak, liberala izateko inola ezinezko spaccata bat dantzatu gura du nazionalismo handinahiaren eta liberalismo **askezaleren** artean. Joxe Azurmendi

Ez da bakarrik handitasuna iraganean jartzen delako (etorkizuna iraganean), ezta gaizkia beti "bestearen" errutzat jotzen delako ere, baizik are gehiago, on-gi nazionalaren eredutzat handikeria forma batzuk ipintzen direlako, lekurik eduki beharko ez luketenak gizarte moderno gizatiar, **askezale** eta sozial batean. Joxe Azurmendi

---

aski *(ETCn **61.082** agerraldi)* **1** *zenbtz* zerbaitetarako gutxienekoa bederen betetzen dela. ik **nahiko**.

Aski erlijio badaukagu elkar gorrotatzeko, ez, ordea, nahikoa elkar maitatzeko. Jose Angel Irigaray

Batxilergoko lehenengo urte hartako irakasleak gogoratu nahi ditudanean, laino uher batean difuminatuta ageri zaizkit ia denak, batzuk besteekin nahasian, bakoitzaren nortasunaren soslaia nabarmentzeko **aski** indarrik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaurdaino gorde diren garai hartako benetako gutunek **aski** lekukotasun garbia ematen dute gutun haien literatur kalitateaz. Jon Muñoz

Ez diote barruan bizitzen ari direnari ateratzen uzten: amorrua, axolagabea, emozio eza, haur txikien moduko zinkurin mutuak, samindura eta etsipena **aski** oniritzi, ezagutu eta maitatu izan ez garelako eta aurrerantzean horrelakorik ezin espero delako. Joxan Elosegi

Pentsamendu hark, hala ere, ez zuen **aski** indarrik izan nire ameskerietatik ateraraztekо. Alberto Ladron Arana

Nazioa eraturik dagoenean, jende **aski** izaten da; ugaltzeko gogoa gutxiago nabarmentzen da; ezkontzaren xedea baino, kezka zabalagoa da ezkontzaren gozo eta duintasunarena; familietan ordena iraunkorra bilatzen da eta amodioari aitortzen zaio halako esparru mugatua, ordena hori inoiz ere urratua izan ez dadin. Andres Urrutia

Izango ote dugu guk bururik eta kemenik **aski** tresna berriok behar bezala erabiltzeko? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Errekadua utzi nionetik hara bere guardi txanda amaitu, atseden egin eta beste guardi txanda bat egiteko **aski** denbora igaro baitzen. Edorta Jimenez

Txistulariek bazuten **aski** arrazoirik trikitilariekin haserre egoteko. Iñigo Aranbarri

Ulisesek oraingoz **aski** zigor zuela eta, Egas aldera abiatu zen Poseidon, bere etxera, zaldi zurda-ederrei eraginez. Juan Kruz Igerabide

• **2** *adlag* behar adina; behar baino gehiago.

Euren izena **aski** zikindu dutela ziotek, eta garbitzekotan auzoa ere garbitu beharra dagoela! Urtzi Urrutikoeetxea

-Aski dakik dakianarekin. Juan Kruz Igerabide

Nagusi den endekasilabo zuria bere horretan emateari gehitxo iritzirik, neurri erregularrik gabeko tirada hala ere bertso-taxuzkoetan eman ditugu halako pasarteak, tonuz ere **aski** bereizten direlakoan prosaikoagoetatik. Juan Garzia

3 (adizlagunekin)

Roberto betiko lekuan zegoen: neutral corner-etik oso gertu eserita, oholtza karratuko argiari adi, ringeko izerdi lurrundua usnatzeko **aski** gertu. Harkaitz Cano

Aski ardura izkiriatzen genuen elgarri. Marzel Etxehandi

Iraultzaren alde bizitza emateak bazterrean utzarazitakoaren nostalgia, sakon **aski** sentitu zuen: bikote harreman zoriontsua, haurrak, etxe eder bat, pintatzea... Markos Zapiain

Gainerakoak bezala, ahalik eta lekurik bakartienean esertzera joan zen, baina Lauaxetarengandik **aski** gertu hala ere. Juan Luis Zabala

Neure burua **aski** nahasirik sentitzen badut ere, oso ongi oroitzen naiz bera ezagutu nuen ilunabar umel hartaz. Patxi Zubizarreta

Aski ondo zekien haien berniz distiratsuak barbaro aseezinena ezkutatzen zuela, eta ezin zitzaiela animalia haiei garaipen-itxaropen txikienik eskaini. Fernando Morillo

Gure arteko azalera handietako (eta ez horren handietako) zakarrontzi itzeletara gauero-gauero bideratzen dira iraungitze data oraino **aski** urruti zuten frutak, esnekiak, barazkiak, haragi eta arrautzak, arrain fresko samarrak, ogi eta opilak, hegaztiak... Edorta Agirre

Alanbre sareetatik **aski** hurbil eta ortogonalki, presoen ohetegiak paraleloki altxatuak zituzten. Eneko Bidegain

Kontuak kontu eta jaioterria jaioterri, Barbara Allen **aski** gazte joan zen Edinburgora bizitzera, Graeme familiakoen jauregi ederrera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bestela, ukitze soila heriotzaren **aski** eragile litzateke, ez bailegoke gorputz iraunkorreko ezer, zeinaren bilbea indar aparteko batek desegin beharko lukeen. Xabier Amuriza

4 (izenondoekin)

Aitak erotu arte edaten zuela ohartzeko **aski** handia izan zen egunetik, ez zuen sekulan gehiago negarrik egin. Elena Touyarou

Urrezko letraz idatzirik jaso arren, liburu honek ez zuen gorengo maila lortu arabiarren artean eta, egia esatera, **aski** gutxietsia gertatu zen harik eta, XVIIø mendean, Europan arrakasta handiz ezagutu zen arte. Patxi Zubizarreta

Harrigarriro, te berdearen kalitatea **aski** ona zen, eta nahasketa erabat egokia, tokia eta abagunea kontuan hartuz gero, eta, ondorioz, Egutxi agurea lasaitu egin zen. Ibon Uribarri

Konbinazio **aski** nahasgarria. Fernando Morillo

Dirudienez, osagai-egiturazko kontzeptuak oso egokiak dira hizkuntzaren atal txiki baterako, eta gainerakoa osagai-egitura gramatikak sortutako kateei formaldatze talde **aski** soil bat ezarriaz erator daiteke. Itziar Laka

Eroa **aski** ezaguna da hirian, Gabriel Rua izan zen, Uriel da Rua ere bai, bi izen behar, batek ezin bailezake ase haren egia-gosea; Gabriel biolin jotzailea, edo Gabriel eroa, azkenik. Felipe Juaristi

Horrelako zerbait, Andaluziari buruz esaterako, uste dut **aski** onartua dagoela. Koldo Izagirre

Neska **aski** potoloa zen, biloa urdin argiz tindatua, eta Iratxe zeritzala erranez aurkeztu zuen bere burua. Xabier Montoia

Aski ezaguna da efektu hori, esate baterako, binilozko diskoak entzuteko gailuetan. Irene Aldasoro

Hondarribian bere buruaz beste egin zuen mutilaren kasua **aski** adierazgarria da. Iñigo Aranbarri

Bertsolaritzaren antzinatasunaz mito errazegi bat egin da, euskal bertsolaritza betikoa edo dela; eta mito guzien kontra doan gure aldi azkar honetan erraz sortu da antimito haserretua ere: bertsolaritza fenomeno **aski** modernoa dela Euskal Herrian, XIX. mendekoa edo. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bazen han benetako ohe bat, **aski** dotorea, lau erpinetan haga banarekin; hagetako goietan, berriz, oihal ederra zeukan, eta hantxe ziren eskegirik gortinak ere, lotarakoan bakea nahi izanez gero haiek itxi eta kito egiteko moduan. Edorta Jimenez

Testuinguruan **aski** ulergarriak direla uste du, baina hala ere, munduko oxtabenetan maizter bizi den herri ijito, motxaile, hungariano edo buhameari omenaldi eta eskerron gisa, honako zerrendan dauzka irakurleak, haien hizkerari zor zaizkionak: Koldo Izagirre

Roseri esan ere egiten zion, barreka, **aski** zaharra zela, bere aita izateko lain; baina biek ala biek ere ez zuten sekula halakorik sinetsi. Mirentxu Larrañaga

Ez al gara **aski** fotogeniko ala zer gibelarraio? Harkaitz Cano

Guztiarekin ere, orduan **aski** zoriontsu izan zirela ematen zuen. Irene Aldasoro

Hatzez hatz hasi da pasatzen, irrien eta barreen artean, airoso hasieran, zurezko euskarria **aski** luzea den bitartean, neketsuago gero, atzamarrentzako tokia urritu ahalean. Xabier Mendiguren Elizegi

"Ez zeudek gaizki", baina tonuagatik nabaria zen, **aski** argi gainera, nire liburuak ez zituela atsegin. Iban Zaldua

Berrogeita bost urte beteak nituen, Lajosek denbora **aski** luzea zeraman beste emakume batekin bizitzen eta, beharbada, ezkonduta ere egongo zen harekin. Ander Irizar

5 (bere horretan)

Zer daukadan ondotxo dakit; neuri galdetzea **aski**. Jesus Mari Mendizabal

Nik, adibidez, ez dakit Namibiako berri batere, ezta Afrika behealde horretan seguru-seguru non dagoen ere (mapan), baina dozena bat tekla sakatzea **aski**, behar dudan guztia jakin eta hango errealitatearen muinaz jabetzeko. Iñaki Segurola

-Zer, gaurkoz **aski**? - bota dio iritsi orduko -. Pello Lizarralde

Uf, **aski**, ordenatu behar dut hau guztia hala edo hola, eldarnioek ere antolatuak egon behar irizpideren bati jarraituz, metodoa eman behar erokeriari, gutxi gorabehera Poloniok Hamleten txorotasunaz hitz egiten duen antzera. Karlos Zabala

Portu-buruak azkenean **askitzat** eman ote ditu ontzikoei geratzen zitzaizkien diru poxiak, balio sentimentala beste deusik ez zuten pitxiak, koadroak, ontziteriak? Anjel Lertxundi

6 *argi aski*

Narrazio honetako gakoaren funtsezkoena osatu duten gertaera gehienen ebidentziak, **argi aski** frogatu du Raimundo Silvak ez duela atarramendu onik izan bere ikuspegiak ezartzen saiatu denean. Jon Alonso

Eguzkiaren beroa gutxituz doala dirudi", esan zuen ingurura begira, artean **argi aski** baitzegoen, belarra artean berdetasun trinko leunekoa, etxearen berdetasuna pasio lore purpurez izarreztatua, eta beleak orru hotzak jalkiz goiko alde urdinetik. Anton Garikano

Orduan, emazteak esan zidan: -Non dira zure erruki-egintzak? Non zure egintza onak? **Argi aski** dago zer gertatu zaizun! Elizen arteko biblia

7 *aski eta sobera*

Hala ere, uste dut aipatu konkurtsoak **aski eta sobera** direla bertsolaritza txapelketaz mukuru betea dela ohartzeko. Berria - Kultura

Bistan da 15 urte **aski eta sobera** dela etxe bat altxatzeko; baina 1840a arte ez da inongo agiritan ageri Senperelarren bizi zirela. Berria - Kultura

Hori, berez, urduritzeko zio **aski eta sobera** zen niretzat. Alberto Ladron Arana

Baina nik hainbeste jaso dut dagoeneko Idazki Santutik, **aski eta sobera** baitut neure gogoeta eta hausnarketarako. Askoren artean

Hori egiteko urteak **aski eta sobera** ditut; horregatik izango da, aurretik ez alde egiteagatik, horrenbesteko nagia eta etxemina. Xabier Mendiguren Elizegi

Bazter uzten dut azkenean, nahimenaz eta haren libertateaz dioen guztia, **aski eta sobera** erakutsia baitut ez dela zuzena. Piarres Xarriton

Pare batekin ere **aski eta sobera** dut nik. Pello Lizarralde

Horretan gaude, bada, gazte: gure araudi guztiak emendakinez betetzen, zuzenketa xume batzuk (aldatzeko, kentzeko edo emendatzeko oharrak eginez) **aski eta sobera** diren tokian. Pello Salaburu

Harrapatu nahi zuen gizonak alde egiten zuenean, segundo bat **aski eta sobera** zuen nire gainekoak balakuen mundutik hoztasun hormatuenera iragotzeko. Joxan Elosegi

Haatik, irakurtzen hasi baino lehen, gauzak zertan diren hein batean jakitea laket dutenek; horiek, diot, segitzen ahal dute: bertzeek hobe dute bertatik idazlanera berera iragatea; bai baitakite **aski eta sobera**. Jon Muñoz

Aski eta sobera nuen nik harekin! Joan Mari Irigoien

Baina neure eguneroko beharretarako, **aski eta sobera**. Txillardegi

Aizkorakada bat garondoan **aski eta sobera** izan zuen alderoka hasi eta lurrera erortzeko, baina erortzean eskua ireki zuen eta airean distira ikusi nuen. Juan Garzia

8 *aski iritzi*

-Baliteke diruz urri ibiltzea, baina badauzkazu beste ondasun batzuk eta **aski iritziko** genieke horiekin. Oskar Arana

Beste objetu beneragarriek **aski irizten** zioten beneratuak izateari. Anton Garikano

Pasaiari askok jarraitu zioten gure etsenpluari, eta haiek ere oinetako eta galtzontzilo hutsetan egoteari **aski iritzi**. Joxe Austin Arrieta

9 *aski izan*[1] du *ad*

Ez da segur harritzeko beraz orain **aski baitute** nonbait agertzea garaztar eta inguru hurbiletako hogoita sei abeslariek, horien inguruan errespetu eta entzun-gosezko ixiltasun baten ontzeko. Herria

urean hitz bakar batekin **aski dugu** negu hotzean inoiz bisita egiten digun elur zuria aipatzeko. Berria - Mundua

Txoko hargatik ez zen harritzen Frantxisek ez zuelako Aitorren Hizkuntzaren beretzeko indar mikorik egiten: alabaina abertzalea zen eta segurki abertzale suhar agertzearekin **aski zuen**, jendearen aurrean "norbait" errespetatua izateko. Itxaro Borda

Aljerren pasa dituzun hilabeteetan ikusi eta aditurikoarekin **aski baituzu** hil arte amets asaldagarrien izateko. Xabier Montoia

Idazlan bat irakurtzean, nik ere zerbait ona idazteko gogoa sentitzen dut; pintura on bat ikustean, berriz, **aski nuen** hura mirestearekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Aski dut, jauna, erakutsi didazun abegi ona. Jose Antonio Mujika

Beraz, zer jan eta zer jantzi edukiz gero, **aski dugu**. Elizen arteko biblia

Lehen Koroaren meneko zinen, eta munduan ibiltzeko **aski zenuen** galego, katalan, euskaldun izanda. Joxe Azurmendi

Azken batean Antjeri ohartarazteko, esan gabe baina, **aski nuela** hainbeste paseo txepelekin, banituen nik beste egiteko batzuk. Fernando Rey

Aski dute haizea doan norabidean joan nahi izatea beti. Joxerra Garzia

Baina hori **aski zuen** antz emateko nola aldatua zen, zein gaztetua eta edertua. Matías Mujika

Batean, Garibaik **aski zuela** lau orduko loa egunari ekiteko; beste batean, sei-zazpi hizkuntza zekizkiela; hurrengoan, maisua zela biola jotzen... Anjel Lertxundi

Beraz, norbaitek lurraren itzulia egin nahi balu, **aski luke** beti haratago jarraikitzea partitu den lekura heltzeko. Aurelia Arkotxa

Aski du nagusiaren begietara so egitea, haren nahiak eta aldarteak ezagutzeko. Gotzon Garate

-Aski duzu abisatzea -tematzen da Kattalin. Eneko Bidegain

Aski nuen izeba Reginari dena kontatuko niola esatea - eta bazekien ni benetan kontatzeko bezain eroa, zentzugabekoa eta kementsua nintzela -, gizona hil zorian jartzeko, aplopexiak jota ia. Karlos Zabala

Jatetxetik gehixeago hartzea **aski diat**. Anton Garikano

Zakur asko zegoen herrian, eta **aski nuen** beste bati begiratzea Burek erotzeko. Koro Navarro

Aski du Giottok pertsonaia bat erdi makurtuta eskaintzea, errespetua adierazteko. Anjel Lertxundi

Eta ezer asmatu beharrik ez duela esaten; **aski duela** bere garaikide apain eta elizkoiek egiten dutena islatzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta irakurleak zer esan ez, anitzez ere handiagoak, **aski duzu** ikustea zenbat liburu dauden etxean erosiak, eta zenbat irakurriak. Pello Salaburu

Oren erdi bat **aski dugu** Baionara joatekoøø. Daniel Landart

Minutu bat **aski dut**, eta horrela ez du hemen utzi beharko libreta. Xabier Olarra

-Aski dugu zure kalakaz, aittitte! Koldo Izagirre

Aski diat dei bat egitea, eta agur hire milioi erdi horri. Xabier Mendiguren Elizegi

10 *aski izan*[2] da *ad*

Edo luze goaitatu ondotik esan diete bi bertsorekin **aski dela**. Berria - Kultura

Hori ikustean, suntsitzaileak atzera egin zuen beldurrez; horrela, Jaunaren suminaren proba bakar bat **aski izan** zen. Elizen arteko biblia

Ganadu guztia hilda edo itsasoko arrain guztiak bilduta ere ez lukete **aski izango**! Elizen arteko biblia

-Aski duk, Martin! Joan Mari Irigoien

-Gauzen nahasteko **aski naiz** ni, neure predikuekin. Joan Mari Irigoien

Iruditzen zait **aski dela** esatea gauza asko ez ditugula partekatzen dagoeneko, gurina eta haragia, esate baterako, eta geure patata frijituak jaten ditugula. Josu Zabaleta

Baina txosten hori jakitera eman duten adituen aburuz, akaso horrekin ez da **aski izango** Berria - Gaiak

Alta, ez gudukatu eskasez, ez aski pairaturik... Pairatzea **aski balitz** bezala, salbatua izaiteko, Mathieu apezpikuak galdatzen zuen gisan! Piarres Xarriton

"Gu" - **aski zen** horrekin. Anton Garikano

"**Aski da** laguna zelatatzeaz", esan zion bere buruari. Xabier Aranburu

Abantaila handia, betiere, deia noiz izango zen jakitea: gogorik ez banuen, **aski izango** zen itzalita edukitzea. Xabier Mendiguren Elizegi

- Gure andrek, euli baten ukitua **aski izaten** dik haserretzeko. Patziku Perurena

Iruñean berriz, bi sindikatuek Zaragoza Etorbidean duten egoitzaren atarian elkartu ziren Lan istripuak, **aski da** leloa zuen pankartaren atzean. Berria - Ekonomia

Hark bazuen osaba bat, Barzani jeneralarekin URSSen 1946an ibilia, eta hori **aski zen**. Juan Kruz Igerabide

Eta agian urte bete **aski izango** zela amortizatzeko, aurreratuko genuenarekin. Xabier Olarra

Partida haiek berreraikiz burua lanpeturik irauten nuen eta hori, momentuz, **aski zitzaidan**. Alberto Ladron Arana

Eta turistak...? **Aski bailitzateke** emakumezko turista despitatu bakar bat Azpilgo elizan bere gona motzekin sartzea, guztia hankaz gora jartzeko... Joan Mari Irigoien

Anartean bista luzatzen zitzaidan eta faroak aurtikitzen zuen su lerro bakoitza mugarik gabeko ur aldearen bizkar borobilean punpatzen ikus nezakeen, zortzi segundo oroz: **aski zen** zenbatzea! Itxaro Borda

11 *aski motz* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Salmenta martxa onean doa, 20 euro dira baina segur **aski motz** geldituko dira". ETC-prentsa

Ene antzerki metodora jinez, ezin dut antzerkia egin teoriarekin, egiten dut metaforekin, kontsigna **aski motz**, zehatz eta potente emanez. ETC-prentsa

12 *aski motzean* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Denbora gehienean, bada ordena-maila bat munduan, eta segurtasunik eza, nahiz beti hortxe egon, **aski motzean** loturik edukitzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 *aski segur*

Izan gintezkeen menturaz "jende" euskaldun baino lehen ("ume-jendea" esaten dugu), baina ez "gizon", eta ezta, **aski segur**, "pertsona" ere (ez dago mozorrorik janzterik hizketan hasi baino lehen). Iñaki Segurola

14 *aski segurik*

Aspaldiko kantua da hori bainan egun hotan gobernuak ere bere gain hartu duena: Frantzian, ez da aski haur sortzen, ez **aski segurik** jendetzearen behar bezala berritzeko. Herria

Joanden igandeko "Egunkaria"-khain xuxen argitaratu du artikulu bat **aski segurik** gogoetagarria. Herria

Bururatzeko, larunbat aratsean, geltoki xaharrean, "Anomalie"ikusgarria, Bascule taldearen eskutik, dena bitxikeria, dena balentria, hori ere **aski segurik** harrigarria! Herria

15 *aski seguru*

Israelek ez bezala, haren sudurra hain herabe iruditu baitzitzaidan, Israelen heriotza **aski seguruagatik** herabe, eta aldi berean guztiz haserre, T.k ez zuen barne mugidarik izaten. Josu Zabaleta

Aurkeztu hutsak adierazten du ordea Elgeta **aski seguru** zegoela bere arteaz. Koldo Izagirre

Tartean, gainera, badirudi Itsasondotik Lasartera eraman zutela, meatze-zuloan **aski seguru** sentitu ez zirelako edo. Xabier Mendiguren Elizegi

16 *guti edo aski*

Aste orroitgarria dener **guti edo aski** izpiritua idekitzen duena elgarren arteko harremanak zabaltzen eta bereziki berriz partitzeko ametsa uzten duena. Herria

Egia da eskolako berriak etxen **guti edo aski** entzuten ditugula, haurrek emanik. Herria

Guti edo aski ofiziokoa bilakatu bainintzen Büchenwald-en, bi aprendiz hartu nituen: eskuin Janssens, Aix-la-Chapelle-ko kapituluaren burua, eta ezker Mayence-ko katedraleko artxipretra. Marzel Etxehandi

Nahi baitzituen klarineta jotzeko eriak edo behatzak zalu atxiki, arotz lanetik urrundu zen **guti edo aski**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Edozein sailetako ekai eskasiak espekulazio gero eta handiagoa ukan zuen ondorio, eta nornahi egoeraz baliatzen zen, **guti edo aski**. Elena Touyarou

Eta gehienak ene ustez **guti edo aski** hautatua zuten apez-bizian iraunez. Piarres Aintziart

17 *itsas aski* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Itsas askia ("Elymus farctus") Poaceae familiako landare belarkara da, Eurasiako eskualde epeletan jatorria duena. Bere errizomei esker hazten da. ETC-entziklopedia

18 *laster aski*

Antza, **laster aski** ikasi zuen herrialde hartan bi dialekto zeudela: lingala eta munikutuba. Pablo Sastre

19 *maiz aski*

Kalitatea aipatu alorretan, eta kalitatea **maiz aski** aintzakotzat hartzen ez diren beste alor batzuetan ere: unibertsitatearen kudeaketan eta unibertsitatearen gobernuan, gaur egun bi kontzeptu hauek, aski desberdinak izanik, elkarren artean nahasten badira ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Dena izan daiteke -erantzun zuen Santxok-; hango hartan, nire ustez, andere Dulzineak zerion usaina, niregan nabari ohi baitut **maiz aski**; eta ez da batere harritzekoa, deabruek bai baitute bata bestearen antza. Patxi Ezkiaga

Eta holako galderak egin izan direnean **maiz aski** esan izan da ezetz, hori ezin dela onartu. Pello Salaburu

Dena jestu zabal eta **maiz aski** gora mintzo bere buruari. Piarres Aintziart

20 *maiz askitan*

Teoria oralistari oro har darion biblia-kutsu horretaz gainera, gogoan har bedi ahozko literaturaren molde askotako agerkariak ikertzeko erabili dela, eta maiz **askitan** ez dela agerkari horietako bakoitzaren izaera berezia gogoan hartu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

21 *ongi aski*

Lurralde zatiketak eta Euskal Herriaren hitza eta erabakiaren ukazioak beren porrota **ongi aski** erakutsi dute. Berria - Harian

-Bai, bai kazetak irakurtzen ditut, **ongi aski** dakit nor diren Euskaldunak... Aurelia Arkotxa

Emakume horrek **ongi aski** daki xantaia egin diezazukeela eta ez diozula poliziari deus aipatuko, komeni ez zaizulako. Iñaki Zabaleta

Izan ere, neu naiz bai, **ongi aski** dakizun legez, zeure amodio-nahi eta gurarien urtetako irakurle saiatu eta bozkariotua; neu naiz bai, nire irrits isil eta irrika gorde guztiak agertu dizkizuna. Xabier Mendiguren Elizegi

Ongi aski erreparatu zion Lucyk autobusaren zenbakiari, bai eta, bidean zehar, St. Joxemari Iturralde

Esan behar dut, **ongi aski** jartzen zituela; pazientzia izugarria baitzuen. Patziku Perurena

-Hitz horri sinetsiz, bada, ez diot kalte gehiagorik egingo; **ongi aski** merezia zuen baina. Patxi Ezkiaga

-Ez, zuk **ongi aski** dakizu ez ginela zigiluez ari. Koldo Izagirre

Saizarbitoriak **ongi aski** bereizten zituen... Ana Urkiza

Eta esan zion, gainera: - **Ongi aski** dakizu nolako kaltea egin zenion gure aita Davidi. Bota diezazula Jaunak gainera zeure gaiztakeria. Elizen arteko biblia

22 *segur aski* *(**467** agerraldi, **77** liburu eta **122** artikulutan; orobat **seguraski** **167** agerraldi, **23** liburu eta **32** artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **segur aski** agertzen da)* *adlag* seguru asko.

Segur aski beste tarantasik ez zen izango Perm hiri osoan. Karlos Zabala

Segur aski ez. Aurelia Arkotxa

Segur aski, hiltzaileren bat da hori; itsasotik ihes egin du, baina Justizia jainkosak ez dio bizitzen uzten. Elizen arteko biblia

Segur aski orain dena primeran joanen da, ziur, orain badakit nola egiten den... lasai! Fernando Rey

Bernat **segur aski** ez zen isilik egonen, hura zen kalakaria! Itxaro Borda

Baina, **segur aski**, sektore edo alor berean ez da berdin irabazten bigarren mailako edo unibertsitate mailako titulua edukita. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Itzultzaileen ustez, esaera hau, maiz errepikatua, **segur aski** garai hartako atsotitz ezaguna izan zitekeen. Xabier Kintana

Maximilian plazan (baita **segur aski** hiri osoan ere) denek zekiten zer negozio klase egiten zen karrika-zulo hartan. Alberto Ladron Arana

Bera ere ez da oso gaztea, eta jakingo du, **segur aski**, zer den ama edo aita galtzea. Imanol Zurutuza

Eguerdi inguruan **segur aski**, esan zuen mutilak. Koro Navarro

Hortaz, tartea ez da **segur aski** ere txikia izango. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Parisen hilko diat **segur aski**. Antton Olano

Bere printzipio **segur aski** katolikoek ametitzen zioten punturaino. Bernardo Atxaga

23 ***seguru aski*** *(**128** agerraldi, **33** liburu eta **17** artikulutan) adlag* seguru asko.

Seguru aski bahekien hik hau... Txillardegi

Seguru aski, denbora luzea zeraman Hannak negar-zotinka, aurpegia burkoetan sarturik, gehiago ezin eutsi izan zion arte. Joxe Austin Arrieta

Ulertu nian, horrez gain, zein bitxi sentituko hintzen, **seguru aski**, gure artean, jende arruntaren artean. Xabier Olarra

Baina Jainkoak nahiko du, **seguru aski**, noizbait ni dirua itzultzeko gauza izatea. Xabier Olarra

Rafa gu baino askoz ere ganoratsuagoa duzu, eta **seguru aski** ez zaio gizalegezkoa irudituko arrazionamenduaren kontura txantxetan ibiltzea. Josu Landa

Nagikeria hutsez egingo nuen **seguru aski**. Joxe Austin Arrieta

Ezti-usain betegarria zerion haren arropari, halvah ezti-opilarena **seguru aski**. Anjel Lertxundi

24 ***ziur aski*** *(**362** agerraldi, **45** liburu eta **101** artikulutan) adlag* ziur asko. ik **seguru 14**.

Ziur aski, urtetakoa izango zen Virgilen gaixotze-prozesua; 1985etik aurrera, etengabe gizendua zen. Xabier Olarra

Ziur aski ez zen harrituko, bere medikuak jakinaren gainean jarriko baitzuen neurri batean, honelako zerbait esanez: [...]. Xabier Olarra

Ziur aski ez, zeren bere materialtasun hutsaren bidez [...] ez baitu ezer adierazten jokalariarentzat. Isabel Arrigain

Beno, **ziur aski** ametsa izango zen dena. Julen Gabiria

-Eta nola urkatzen duzue hemen? **Ziur aski**, isil-gordeka! Jose Morales

Azala hezurrei itsatsita hilko nauk **ziur aski**, hain ihar, ezen liburu bateko bi orriren artean sartzea izango baitute, lur emateko. Karlos Zabala

Hasierako momentuak igaro ondoren, hizkuntza, **ziur aski**, bere bizitza semiologikoan sartuko da. Isabel Arrigain

Gaur egun, **ziur aski**, ez dira zati horiek eta beren konbinazioak hain garbi atzemango. Isabel Arrigain

Bere gelara igoko zen **ziur aski**. Karlos Zabala

Aulki elektrikoaren inspirazio iturri nagusia inkisizio garaiko galdeketa aulkian dago **ziur aski**. Harkaitz Cano

Irizpide nagusia administrazio-komenentzia bada, komunikabide onak dituen erdiko tokiren bat aukeratuko da **ziur aski**. Iñaki Mendiguren

Hobe bai inoiz itzuliko ez banintz, ez dut itzuli nahi, baina ez, ez da egia, badakit ez dela egia, **ziur aski** urtebete barru bueltatuko naiz, urtean behin-edo, Gabonetan **ziur aski**. Mikel Hernandez Abaitua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

arrazoi aski (13); **aski adierazgarria** (13); **aski aise** (19); **aski argi** (42); **aski arrazoi** (15); **aski baita** (22); **aski bere** (15); **aski bitxia** (13); **aski da** (547); **aski da ikustea** (19); **aski denbora** (27); **aski dira** (31); **aski du** (54); **aski dugu** (40); **aski duk** (43); **aski dut** (55); **aski dute** (35); **aski duzu** (28); **aski ederki** (18); **aski ere** (40); **aski eta gehiegi** (13); **aski eta sobera** (41); **aski ez** (198); **aski ez dela** (16); **aski ezaguna** (69); **aski ezagutzen** (17); **aski garbi** (42); **aski goiz** (88); **aski gora** (24); **aski handia** (45); **aski hurbil** (28); **aski indar** (25); **aski izan** (233); **aski lan** (53); **aski laster** (34); **aski leku** (17); **aski luzaz** (23); **aski luzea** (19); **aski maite** (13); **aski modu** (14); **aski nuen** (38); **aski ona** (15); **aski ongi** (83); **aski ote** (15); **aski polliki** (28); **aski toki** (22); **aski urrun** (39); **aski zabala** (16); **aski zaila** (38); **aski zait** (16); **bada aski** (21); **batekin aski** (16); **batzuetan aski** (13); **batzuk aski** (25); **bera aski** (34); **berak aski** (17); **berez aski** (14); **egitea aski** (22); **ez aski** (102); **ez baita aski** (28); **ez da aski** (198); **ez dela aski** (59); **ez dira aski** (49); **ez direla aski** (21); **ez du aski** (25); **ez dugu aski** (16); **ez zen aski** (62); **ez ziren aski** (15); **ez zuen aski** (21); **guti aski** (66); **hau aski** (25); **hori aski** (116); **hori aski ez** (19); **hori aski izan** (17); **horiek aski** (16); **horrekin aski** (21); **hura aski** (18); **ikustea aski** (15); **izatea aski** (14); **jadanik aski** (15); **lanik aski** (15); **maiz aski** (13); **ongi aski** (24); **oraino aski** (15); **segur aski** (465); **segur aski ere** (25); **segur aski ez** (26); **seguru aski** (127); **ziur aski** (327); **ziur aski ez** (15)

---

askiesgarri *izond* askiets daitekeena.

Izan ere, hainbeste dualitate artean, badirudi hizkuntza dela autonomoki definitua izateko gai den bakarra, eta, gainera, helduleku **askiesgarriaz** hornitzen du gogoa. Isabel Arrigain

---

askiespen *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* askiestea.

ZADeko autonomiaz, egiturez edota **askiespenaz** idatzi duzu. ETC-prentsa

Neurrien edozein exekuzio-egintzari ekin baino lehen, ezinbesteko baldintza gisa, kauzioa emateko beharra eta bere muntaren **askiespen** eta prestatzeko moduaren egokiespena, PZL 737. artikuluan adierazten denez. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

askieste *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi) iz* askitzat hartzea, aski dela uste izatea.

Dena higundua gertatzen zen aurpegien arruntaz, solasen ezteusaz, **askieste** zozoaz bekoki izertuetan zariola! ETC-literatura, saiakera

Peruri erasaten dion Zentzu eta Batasun sakratuaren nostalgia sekretuak eragotziko dio hain zuzen ohiko biltze zuhurrak eta behin-behineko antolamendu zentzuzkoak **askiestea.** ETC-literatura, saiakera

Baina aldi berean sumatu nuen ez zela nire eginbeharra hitz opako ganorabako haiek **askiestea**, neure liluramenduaren baitan argiago ikusten ahalegintzea baizik. ETC-literatura, saiakera

Hobe da **askiestea** beste egia apalago eta ez horren berogarri batzuekin, zeinak neke handiz erdiesten baitira, emeki-emeki eta laburbiderik gabe, ikasiz, eztabaidatuz eta arrazoituz, eta egiazta eta froga baitaitezke. ETC-literatura, saiakera

Ohargarria, hizkuntzarena edo beste ezaugarri objektiboren baten irizpide bakarra **askiestearen** aurka den-denak bat etorri direla, gainerakoan diferentzia handiekin berriro euren artean. ETC-literatura, saiakera

Gizon eta emazteentzako gune bereiziak eskaintzen dituen gizarte arabiarraren soslaiak eta iritziak, goresmenak eta lausenguak, mespretxuak eta **askiesteak** taularatu ditu. ETC-prentsa

Jarrera horren aitzinean, sindikatuek jakinarazi dute sindikatuak ostiralean bilduko direla mobilizazio ildoak aztertzeko, funtzio publikoko aldarriak **askiestea** lortu arte. ETC-prentsa

Gizonen kasuan, neskekin harreman intimorik ukan ezean, sistemak uzten dien aterabide bakarra norbera **askiestea** da, masturbatzea. ETC-prentsa

Gauza bakarra da sortze unerako etsitzea baino kaltegarriagoa: **askiestea**. ETC-prentsa

Ezina (mundua guztia **askiestea**) ekinez egin izan du PSNk urteetan. ETC-prentsa

Esku-emateak eta legezko gaitasunaren egiaztagiriak **askiesteagatik**. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

askietsi, askiets(i), askiesten du *ad* askitzat hartu, aski dela uste izan.

Itxaronaldia **askietsi** nuelarik, hatza atezain automatikora gidatu nuen bigarrenez, baita botoi gainean itsatsita utzi ere pixka batean. Aingeru Epaltza

Eskerturik gelditu nintzaion Charlyri, oheraino gabe, gure karga ate ondoan uztea **askietsi** zuelarik. Aingeru Epaltza

Ez ninduen **askietsi** bertso horrek. Andoni Egaña

Nolanahi ere, hemen gure ezagumenaren erabilera hutsa egitate gisa eta bere ezagugarria aurkeztu izatearekin **askiets** gaitezke. Ibon Uribarri

Ideia hark elkarren begikotasuna ekarri zuen, ardoak bortiztu; hala non handik berehala ez zuten **askietsi** herrari sekulako uko egin izana, adiskidantza osoa zin egin zioten elkarri. Jon Muñoz

Maiz erregeek berek ere **askietsi** egiten zuten zetroaz transmisio sinple bat egitea, San Mauroren bizitzan ageri denez. zorionekoak gu, Baldin zuen arinkerian, nahiagoz misterioa eskandalua bainoago, abandonu umiliagarri bat **askiesten** baduzue, eta ez baduzue bezperako idoloaz biharamuneko kalteduna egiten. Iñaki Iñurrieta

Ahoz erdietsi informazioa **askiesten** ez zuelarik, bertzalde, beldurrik batere ez zien bide katramilatsuagoei. Aingeru Epaltza

Kapitainek, berriz, arkabuzarekikoa hobesten, non ez zuten, bertzerik gabe, hura **askiesten**. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ez askietsirik (3)

---

askiez *izond/iz* aski ez dena.

Horrelako autoafekziorik ez egotean, afekzioen aniztasunetik soilik irits daiteke autokontzientziara: berorren baldintza beharrezko baina **askiez** dira. Piarres Xarriton

Materialismoa alferrikakoa baldin bada nire izatearen argipen-era gisa, orduan espiritualismoa ere horretarako **askieza** da. Ibon Uribarri

Egitatean, arrazoimen hutsa hain da batasun betegina, non, bere printzipioa arrazoimenari bere izaeraren arabera ezartzen zaizkion galdekizun guztien arteko bat bakarrari dagokionez **askieza** balitz, orduan hura baztertu egin beharko bailitzateke, zeren, hainbestez, printzipioak ez bailuke beste galdekizun guztiei konfiantza osoz erantzuteko mailarik. Ibon Uribarri

Ohar honen asmoa espazioaren idealtasuna oso **askiezak** diren adibideen bidez argitzeko ateraldia saihestea da, zeren koloreak, gustamena, eta abar, gauzen antolaera ez, baina gure subjektuaren aldaketa soil gisa kontsideratzen baitira bidezki, hots, gizaki ezberdinetan ere ezberdinak izan daitezkeen aldaketa gisa. Ibon Uribarri

Idealista eszeptikoa, ordea, gure baieztapenaren oinarria soilik ukatzen duen eta hautemapen zuzenean oinarritzen dela uste dugun materiaren izatearen gure limurtzea **askieztzat** adierazten duen idealista, hainbestez, giza arrazoimenaren ongile bat da. Ibon Uribarri

Ez ezazu uste izan hemen giza adimenaren **askiezaz** eta noraezeko mugaz esandakoa erlijioari buruz esana denik; aitzitik, filosofoen esana da, haiek guztiek ezin hobeki ulertua, haien eskola edo iritzia gorabehera. Xabier Kintana

Erroma bera ere, handia izateko jaioa eta zelanbait esateko, betiereko hiria izateko xedatua, ez al zen berehalakoan konturatu lege horien **askiezaz**? Andres Urrutia

---

askieztasun *iz* askieza denaren nolakotasuna.

Desestaltze horrek (scientia intuitiva) arrazoimenaren **askieztasuna** agerian jartzen zuen hura obratzen du: atributu jainkozkoek gauza singularren esentziak inplikatzen dituzten erak atzematea. Piarres Xarriton

---

askigarri *iz* askiets dezakeena.

Baina nire helbururako **askigarria** da froga-oinarri soila begi-bistan jartzea, era herrikoian bada ere. Ibon Uribarri

---

askiko

1 ***askiko izan*** da/du *ad ipar* nahikoa izan.

Ziurtzat hartu izan dute, beraz, Jainkoen judizioek gainditzen dutela urrundik gizakien ulermena; eta kausa hori bera **askiko zen** egiaren ezjakinean uzteko gizaki guztiak, sekulako, Matematikak ez balie haiei erakutsi beste egiabide bat, ez xedeez baina bai esentziez eta itxuren propietateez arduratzen dena. Piarres Xarriton

Beraz OTAN-eko soldadoak hor egonen dira ilabete bat, agian epe hori **askiko dela** bazterren baketzeko. Herria

Askiko zait, behin bederen, guztiek aitortu behar duten egia bat oinarritzat hartzea; hots, gizaki guztiak sortzen direla gauzen kausak zer diren batere jakin gabe eta berentzat baliagarri dena dutela nahi bilatu eta hori badakitela. Piarres Xarriton

Jakin balu beraz, **askiko zuen** A sartzea Xotarreta izenaren hastean eta denen buru baditake lehenagoko izena zuela hola berriz emanen etxeari. Herria

Eta kontzeptu horiek gutarik urrun direla badirudi ere, gure euskal herrien historia luzeari so bat egitea **askiko zaigu** ohartzeko azken bi mendeetan, mundu guzian bezala, gure Herrian ere agertu den Estatu-Nazioaren arrakastak baduela ondoriorik. Herria

86 bidaiari gehiago **askiko ziren** Miarritzeko aireportua 800 000 ko marrara heltzeko jaz. Herria

---

askiluze *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* Poaceae familiako landare belarkara *(Elymus repens)*.

Askiluzea ("Elymus repens") Poaceae familiako landare belarkara da, Eurasian, eskualde artikoan eta iparraldeko Afrikan jatorria duena. ETC-entziklopedia

---

askimotz *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)* *iz* Poaceae familiako landare belarkara *(Cynodon dactylon)*.

Askimotz, arrosario-belar, aski, brena edo otsatz ("Cynodon dactylon") Poaceae familiako landare belarkara da. Gariaren familiakoa, sustrai zuztar etzan korapilatsua eta hosto luze eta zorrotzak dituena; hiru edo bost buruxka ematen ditu lasto motz baten muturrean. ETC-entziklopedia

Irten egin naiz lorategiko lur sail txikira, orain **askimotzez** estalitakora. ETC-prentsa

Urrutira gabe, horien tartetikoak dira marrubiak (Fragaria sp.), lezka arrunta (Phragmites australis), barrabas-belarra, papiroa (Cyperus papyrus), menda ugari (Mentha sp.), edaskia (Ranunculus reptans), girtangorria (Ajuga reptans), **askimotza** edo arrosario-belarra (Cynodon dactylon), batanitzaren (Stachys recta) generoko batzuk (Stachys alegia) eta ezkerte beltza edo biurda edo txildurka (Convulvulus arvensis). ETC-prentsa

---

askiro *adlag* aski delarik.

David Hume izan zen arazoari gehien hurbildu zitzaion filosofoa, baina inolaz ere ez zuen **askiro** determinatu eta bere orokortasunean pentsatu. Ibon Uribarri

Ez noa halako ameskeriei balore edo baliotasun txikienik ere onartzera: gorago Analitikako printzipioek **askiro** erakutsi dute kategoriez (substantziarenaz bezala) esperientzian egiten den erabilera besterik ezin dela egin. Ibon Uribarri

Izan ere, judizioa analitikoa bada, orduan baieztailea edo ezeztailea izan daiteke, eta ondorioz, bere egia beti **askiro** berrezagut daiteke kontraesanaren esakuneari jarraiki. Ibon Uribarri

Espazioan eta denboran, ordea, agerpenen egia enpirikoa **askiro** segurtatua eta ametsekiko kidetasunetik aski bereizia dago, baldin eta biak esperientzia batean lege enpirikoen arabera zuzenki eta osoki bilduak badaude. Ibon Uribarri

---

askitan *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)* *adlag* maiz, usu, sarri.

Kurlinten oinatzez brodaturik egoten zen harea, marka xalo baina nora gabekoz, neure bidea legez **askitan**. ETC-literatura, saiakera

Askitan zanbuilatu ostean, moilako burdinazko amarraleku beroen gainean jartzen zen gorputza epeltzeko. ETC-literatura, saiakera

Errepikatzen zitzaien **askitan**. ETC-literatura, saiakera

Azkenerako, jendeak aski jan zuen, aski miretsi, aski paseatu eta **askitan** entzun inskripzioaren bertsoak. ETC-literatura, saiakera

Renanek beti garbi adieragin du (eta **askitan** errepikatu izan du puntu hau) berak nola ulertzen duen, zer den nazioa, burujabetasun politikorako eskubidea duena, eta zer den nazionalitateen printzipioa. ETC-literatura, saiakera

---

askitasun *iz* aski denaren nolakotasuna. ik **nahikotasun**.

Era berean, y-h izenak betiereko existentzia adierazten du, eta add-y hitzak,day ('nahikoa) -tik etorriak, 'nahikotasuna, **askitasuna** ' esan nahi du, adibidez: [...]. Xabier Kintana

---

askitto *adlag adkor ipar* nahikotxo.

Iguzkiak ere egin du bere agerraldi **askitto** luzea, batek irriño batekin ziolarik: "soroetako ez da iguzkirik, Ibarreko beilarentzat bai!". Herria

Gutien ustean entzuten ahal dira berri batzu **askitto** harrigarriak, hala kausitzen direnak segurik heiek aditu-eta bi karkula egitearekin. Herria

Eta Azkaingo hori, ez dea **askitto** harrigarria? Hor, 3500 jendez azpiko herria izanki-eta, bakoitxak egiten ahal zuen bere lixta, bi zerrendetako hautagaiak nahasiz berdin. Herria

---

askitu, aski(tu), askitzen du *ad* bete.

Gindoazela, batak bestearen besoa atxikiz, lauzak lerrakorrak baitziren, arrosario muttur bat egiten genuen, Ama Birjinaren litaniak, Bihotz Sakratuarenak, batak bestea **askituz** osotu genituenak. Marzel Etxehandi

Batzuk heldu dira, 25 gizon falta direla komandoaren **askitzeko**. Marzel Etxehandi

---

askitxo *adlag adkor* nahikotxo.

Baina **askitxo** da. Felipe Juaristi

---

asko *(ETCn **669.944** agerraldi)* **1** *zenbtz* kopuru handi zehaztugabe bat adierazten duen zenbatzailea. ik **anitz**; **franko**[1].

Erdi Aroan, Europa osoan zabaldu zen zalduneria; zaldunak alde batetik balentria **askoren** egiletzat eta beste alde batetik jokabide-arau zehatzen jarraitzailetzat hartzen ziren. Juan Kruz Igerabide

Ipuin **asko**, gehienen oinarri-oinarrian, amodioa agertuko zaigu, baina, edertasunean emakumea bezainbeste nabarmenduko da gizona, eta sexu batekoen zein bestekoen arteko lehia handia izango da. Patxi Zubizarreta

Bidez bide dabilenak, ostatu **asko** eta adiskide gutxi; hala dio esaerak, eta bidaia-zaletasunak egin nau, beharbada, hain bakarti. Anjel Lertxundi

-Eta guardia **asko** etorri al dira? Pello Lizarralde

Hamlet ere, eta berdin Hamlet, pieza **askoren** puzzlea da. Juan Garzia

Zergatik, beste aukera **asko** izan arren, sortu zait denborak higatu duen larruzko maleta txiki hori irekitzeko gogoa? Joxan Elosegi

Orduan, Jainkoak esan zion Salomoni: - Halako eskaria egin didazulako eta zeuretzat urte **asko**, aberastasuna edota zeure etsaien heriotza eskatu ordez, zuzen gobernatzeko adimena eskatu didazulako, Elizen arteko biblia

Orain, jakina, jende **asko** azalduko da haien arteko antza nabarmentzen, aurpegian duela esanez, begi urtsu berberak dituela eta abar, baina, izatez, 25 urteotan inork zerbait sumatu badu, ez da ausartu, ez eta aho txikiaz esaten ere, hark seme bat, hobeto esanda, alaba bat zuenik. Bego Montorio

Gauza **asko** egiten saiatu bazara ere, diferentea izaten ahaleginduta ere, egunerokotasunak jan ote zaituzten kezka sortu zaizu. Lourdes Oñederra

Hans zaharrak hogeita hamaika jokaldi egin eta izerdi **asko** bota behar izan zuen mate emateko. Alberto Ladron Arana

"Zer hizkuntzatan hitz egiten zenuten? "; kanpina hizkuntza **asko** entzuteko leku egokia izan daiteke, egiaz. Josu Zabaleta

Euskal Herria iraganbide edo trantsito lekua izanik, beti ibili da modu **askotako** jendea. Koldo Izagirre

Gure jaunaren urte honetan lasai ibil gaitezke Espainiako kaleetan, ministro batek aho beroz adierazi duenez, eta hala egiten omen dute turista atzerritar **askok**. Javi Cillero

Globalizazioa aspaldi asmatu zen, duela mende **asko**: liburuen bitartez gauzatzen zen globalizazio hori, eta lasaia zen, pausatua, gutxi batzuena, gaurkoa abiadura handiko globalizazio masiboa den bitartean. Pako Aristi

Galdekizun hauei erantzun **asko** eman dakizkieke, adibidez, ondorengoak: Ibon Uribarri

Lana egiteko, zati **asko** egokitu ditut, pasarte **asko** laburtu, begien aringarri, gozamenaren lagungarri. Juan Kruz Igerabide

Zulo **asko** deskubritu izan da leku ezkutuetatik hasi direlako. Koldo Izagirre

Jende **askoren** bizitza eta ametsak baldintzatu ditu Itoizko urtegiak azken bi harmakadetan. Edurne Elizondo

Erresumaren barruan, lege desberdinak batetik bestera, egoera historiko **askoren** ondorengoak. Andres Urrutia

-Buruzagi **askok** errege izateko eskubidea dutela uste dute - erantsi zuen Cumhailek nahigabetuta -. Joanes Urkixo

Irakurgai **askoren** aitzaki goxoa, Lizarra. Piarres Aintziart

Queensberryko markesa gizon bortitza eta irrazionala zen, eta goi eta erdiko mailako klase puritanoko eta moral hertsiko beste kide **askok** bezala, izugarrizko gorrotoa zion semearen maitaleari eta honek irudikatzen zuen guztiari. Antton Olano

Geuk, zain gaitzaten, goberna gaitzaten, maita gaitzaten - horrelakorik guti ezagutu da hiri honetan, zorigaitzez - aukeratu genituen, aukeratu ditugu denbora **asko** ez dela, sei bat hilabete eskas. Karlos Linazasoro

Aipatutako prozedura **askok** berdin jarraitzen dute euskaraz nahiz erdaraz izan. Iñaki Arranz

- Ez dauzkat lotarako ordu **asko**. Unai Iturriaga

Laburrenik, bada, esan dezadan konpromiso **askoren** arteko oreka nolabaitekoan bide egiten saiatu naizela. Juan Garzia

Askapenaren ondotik hasi zen Sartreren eta bere pentsamoldearen ospea sendotzen eta zabaltzen: existentzialismoa, nonbait, galdera **askoren** erantzun bilakatzen zen hondamendia eta itxaropen eza nagusi ziren garai haietan. Monika Etxebarria

Atzerritik ekarritako liburuak erosten diru apur bat gastatzen hasi nintzen, liburuko pertsonaietako bat bezala, eta ordu **asko** ematen nituen egunean haren sinbologia konplexua ulertu nahirik. Xabier Aranburu

Eta badira beste gauza **asko** gogoratu bai baina idatzi ez ditudanak, eta horietatik **asko** zerikusi zuzena zutenak nirekin. Fernando Rey

Emakume **askorentzat**, berriz, gutuna zen adierazpide bakarra, eta gutun idazle gehienak emakumeak izan ziren, liburu honetan aipatua den Sévigné andrea gidari. Jon Muñoz

Esan gabe doa Polikarpo noiz edo noiz desagertu egiten zela, baina halakoetan amonak haren ondorengo katu nabar bat hartzen zuen, izen bera ezartzen zion eta neke **askorik** gabe erakusten zion bere usadio bitxia. Patxi Zubizarreta

Ate **asko** jo ondoren, 2/33 Errekonozimendu taldean sartzea lortu zuen. Josu Zabaleta

Sekula memoria galtzen baldin bagenuen, itsuan xehetasun metatzen zihardutenek, galdatuz gero ibilera **askoren** edukiak zein norabideak eskaintzen ahalko zizkiguten. Itxaro Borda

Artista edota kirolari **askok** aitortu du objektu baten liluraz hasi zela bere afizioa: pintzelak, eskultura harrigarri bat, zapatila eder batzuk, trikiti distiratsu bat... Pako Aristi

Galdera **asko** egin zizkidatean hiri buruz, ea fidatzekoa hintzen, eta abar. Alberto Ladron Arana

Ikara eta euforia egun haietan neure buruaz lotsarazten ninduten gizon eta emakume **asko** ezagutu nituen, gazte eskuzabalak bihotz emonak espiritu askeak. Koldo Izagirre

Jateari dagokionez, plater **askoren** artean aukera nezakeen. Eskarne Mujika

Pertsona **askorekin** tratatu beharra izan dut nire bizitza eta filosofia lan urte luzeetan. Jenaro Garate

Ararat mendiaren hegaletan herrixka **asko** zeuden. Fernando Rey

Anartean apez **asko** hil zen, ohi baino gehiago, urte gogorrak bizi izan baitzituzten. Xipri Arbelbide

Aspaldian igo gabe nengoen alde horretara, urte **asko**, 25 igual, mutiko-koxkorra artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Egia esateko, Zola 1902ko irailaren 29an hil zenean, haren heriotza hilketa izan zelako susmoa zabaldu zen berehala lagunen eta familiakoen artean, idazlea jende **askoren** mehatxuen, laidoen eta gorrotoen jomuga baitzen, Dreyfus aferan izan zuen parte hartze latzarengatik. Karlos Zabala

Askok osasuntsu ikusi zuten azken aldia gogoratzen zuten eta orduko xehetasun guztiak oroitzen saiatzen ziren, leku zehatza, eguna, egiten zuen eguraldia, elkarri esandakoak. Joseba Urteaga

Banekien halaber diru **asko** zegoela jokoan, eta laino beltzen mehatxurik ere ez zela falta: iruzurren bat izango ote zen, prestatzaileek apustua salduko ote zuten, eta zer gertatuko ote zen orduan, mutilen aurka hasiko ote ziren diru galera handiren bat izandakoak. Bernardo Atxaga

Baina, gainera, "etika" hori ontologia, antropologia eta abar bezalako izenak dituzten gauza **asko** ere bada. Piarres Xarriton

Zuhaitz **askoko** bidezidor baten buruan, ilunpean egoten zen dena gauaz, eta zuhaitzen artean beldurra nagusitzen zen, ez bainekien nora agertuko nintzen. Fernando Rey

Komuzki gertatzen den bezala, izen **askok** zerbait berezi erran nahi digute. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lekuonak bere hitzaldia egin eta urte **askotara**, Jorge de Oteizak ere bertsolaritzaren defentsa egin zuen, oriotarrak ohi duen estilo sutsuan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hori ez dizuet kontatuko, gertaera **asko** baitut hori baino lehen kontatzeko. Pello Lizarralde

Bai, gauza zakar **asko** esaten zituen, aitortu zuen Ramsay andreak; gorrotagarria zen etengabe hartan jardukitzea, eta James are eta etsiago uztea; baina hala ere ez zien ametituko haren bizkar irri egiten. Anton Garikano

- Gaur ez dinagu beste zeregin **askorik**. Harkaitz Cano

Hondarrean, gure mahaira bideratu zen, alegeraki, solasaldi **askoren** bilduma eginez: Itxaro Borda

Kontakizunaren bidean atzera jo dut, urte **asko** atzera: ondo ezagutzen ditudan parajeetatik hurrean kokatu dut gertakizuna, orain inor bizi ez den baserri batean. Xabier Etxabe

2 (izenaren ezkerrean)

Amak holako zernahi galde egin zizkion eta ni loriatua amari esker ikasiz jakin nahiak nituen **asko** gauza. Janbattitt Dirassar

Asko jende ibili da, bereziki langabezian zirenak. Herria

Asko urtez elizak hetsirik egon ziren, apezak kendu eta desherritu zituzten; nihon mezarik, predikurik, sakramendurik; izaitekotz ere, han hemenka bakar zonbait gordeka eta ilunbetan bainan deus funtsezkorik ez. Xipri Arbelbide

Gorputz jakin bat **asko** modutara hunkia izan daitekeela senti dugu. Piarres Xarriton

"Ez da musik" gelditu nuen, **asko** pertsona ezagun ibilirik, urte andana batez beste emankizun mota bat egin nuen. Menane Oxandabaratz

Ezen, ikus dezagun zenbat jende badagoen esposaturik Luzaidetik Ondarrolara, Arnegira, Ezterenzubira, Baigorrira, Bankara, Aldudera eta beste **asko** herrietara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

3 (bere horretan, izenik gabe)

Bizitza nahigabetua oraingoz bazter utzi eta historiaren gaineko azterketan hasi zen, nahiz eta **askok** Eugenio Aviranetakoaren figuraren baitan "biografoa"ren irudikapena besterik ikusi ez. Josu Zabaleta

Asko izaten dira horietakoak metroko hesietan, neska gazteen begira. Joxan Elosegi

Askok uste dute felagek espresuki ezarri dutela han. Xabier Montoia

Askok ez zion inportantziarik eman gerrari, udatiarrak arropa zuriekin ibili ziren kalean paseoan oraindik, arrantzaleak euren loihartzekoekin jardun ziren baporeetan beharrean. Joseba Sarrionandia

Artean, **askok** begirunea ziotela ematen zuen-eta, denborak argiago esango zidan nork zion halakoa, eta zenbaterainokoa, eta zeren kariaz; beste batzuek zioten gorrotoaren berri jakin ahala, hain zuzen. Edorta Jimenez

Dublindarrak deituko diot sailari, **askok** hiritzat daukaten hemiplegia edo paralesia horren arima salatzeko". Irene Aldasoro

Ezkon ezti etengabea izateko aukera horren inbidia zieten **askok**. Josu Zabaleta

Ezkondu zenetik kalean bizi bada ere, Zestoa gainekoa da sortzez, eta **asko** ibilia da inguruetan, baso lanean-eta. Iñigo Aranbarri

Askoren aurrezkia baten eskuetan. Xabier Olarra

Maisu Zaharra esaten zioten **askok**. Fernando Morillo

Lehen momentuan, sentipen hori eragin diezaioke **askori** liburuaren irakurketak, nahiz eta aldez aurretik jakin dezakeen, Telletxea Idigorasi esker-edo, zenbait gauza funtsezko. Patxi Altuna

4 aski.

Patar honen igoera ulertu dut Alto de Riocabo kaskoan nago, Triacastela **asko** urrun da oraindik eta San Xil ageri da, xilo batean. Piarres Aintziart

• **5** *adlag*

Asko sufritzen zuen Matiasek halakoetan. Unai Elorriaga

Gaztetan **asko** esperoko ez nuena, Arantzazun ez baitzen aroarekiko aparteko eskolarik inoiz ematen, eguraldiari begira erne eta atezu arratsero bezala goizeko lehen ordutik plantatu beharra izango zen. Pello Zabala

Asko oroitzen ginen gure hiriaz, gure etxeaz, gure familiaz, gure familiaren hilobiez. Juan Kruz Igerabide

Ez zitzaidan **asko** kostatu trikimailua zein zen jakitea. Xabier Olarra

Mila aldiz esan dizut **asko** erlajatzen nautela. Bernardo Atxaga

Jentilari ihes egiteko pentsatua zeukaten asmakizunarekin gertatzen zena gertatzen zela ere, hobe izango zen beti baten heriotza, jentila herrietara jaitsi eta **asko** hondatzea baino. Pako Aristi

Janinak **asko** maite zuen. Itxaro Borda

2.02 Izenak **asko** behar du eta **asko** jaten du; gizenkorra da. Iñaki Segurola

Bere kantuak **asko** maite ditut! " Ramuntxo Etxeberri

Pozak ez zuen **asko** iraun, andereñoak bost minutu lehenago egindako mehatxuaren kausaz: Anjel Lertxundi

Uneoro eta sasoioro, zeure burua beti eguraldiari itxura hartzen eduki beharrak **asko** nekatzen zaitu. Pello Zabala

-Trankil -lasaitu zuen Leirek-; egia da ez dela **asko** pentsatu behar Bilbo zatarra eta zaratatsua dela ohartzeko. Aitor Arana

Hitz egin ere, esango nuke etxe frankotan ez dugula **askorik** egin, ez behintzat izan duen eraginaren neurrian. Xabier Mendiguren Elizegi

Demagun bi ahapaldion artean "baina" jartzen duela egileak: bere irakurleaz **asko** fidatzen ez den seinale, edo akaso irakasle, edo didaktismoaren gaitzak kutsaturiko norbait dela behintzat. Joxerra Garzia

Liburua irakurtzen duenak berehala aterako du ondorio bat: **asko** aurreraratu dugu autogobernua eskuratu dugunetik, eta ez da dudarik urrats handiak egin direla hezkuntza

maila guztietan, unibertsitatean ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eguraldiak ere **asko** esan nahi du eta! - adierazi zuen Püchl andreak, eta puntu-lana egiten segitu zuen. Anton Garikano

Aitortu behar dut ikasle zintzo eta atseginen itxura hartu dizuedala, eta nire ustez oso ondo konponduko garela eta **asko** ikasiko dugula. Bernardo Atxaga

Bazuen ordea, garai berean, Martin Azpilkuetak, Salamancako Unibertsitatean, **asko** miresten zuen irakaslekide bat, Frantzisko Vitoriakoa. Piarres Xarriton

Elbarritasun bat zeukan arren oso ongi ibiltzen zen mendian eta, nik ez bezala, **asko** zekien zuhaitzez eta txoriez. Agurtzane Juanena

Italiarrak ez zaizkidak **asko** gustatzen. Pedro Alberdi

Eta txapelokerrak, **asko** ezagutu ditut nik. Edorta Jimenez

Gazte anitzek gosea ikusten dute eta **asko** hiltzen da eta zaharrak are gehiago. Marzel Etxehandi

Garaieran ere ez zitzaion **asko** igarri: metro eta erdi eskas zen, gutxi gorabehera. Julen Gabiria

6 (adizlagunarekin batera) oso.

Hark, ordea, ez zuen herren egiten eta pauso seguru eta zuzenak ematen zituen herrenarengana, urrutitik eta klaro **asko** antz emanda. Matías Mujika

[...] edo oinen ondoan Bixkor txakurra, putzuan miazka, eta bat-batean Etxe Goxo, biraka, biraka, biraka begi aurrean, eta nahiz baserri hartan ez zegoen hosto bakar bat ere garrasi egiteko gogoa ematen ez zionik, aurrean ibili zitzaion biraka, lotsa galduta, eder **asko**. Anton Garikano

7 (izenondo gisa) oso.

-Igandean Mure-n ikusi zintudan, neska eder batekin: ezagutzen dut, Gruaro-koa da... eta hark bazuen lagun polit **askoa**, inoiz hitzik egin ezin izan diodana... Josu Zabaleta

Gero, ia hirurogei urterekin, Rosa Galindo ezagutu zuen, emakume eder **askoa**, eta agurea nerabe bihurtu zen, maitemindu egin zen. Jon Muñoz

Anaia zaharrenak bazuen hemezortzi urteko seme bat, eta neuk ere banituen bi mutil galant **askoak**. Koro Navarro

Batez ere eskura ditugulako batzarra, elkartea, edo batasuna jator **askoak** irizten diot hain "xelebrea". Koldo Zuazo

Horra, buzkantza eta orantza usai eder **askoa**, nere tesiaren alde. Patziku Perurena

Eta, hara, neu, Charlie -barre-algara egin du-, charlote eredugarri **askoa**. Mirentxu Larrañaga

Badaude autore interesante **askoak**. Ana Urkiza

"Zuri samarra?" iradoki zuen Bankes jaunak, bera ere Ramsay jaunaren bizkarrari begira, zeren ez al zeukan gogoan bere adiskidetasuna, eta Camek lorea ukatu izana, eta neska-mutil horiek denak, eta bere etxea, eroso **askoa** baina ematzea hil zenetik hain isila? Anton Garikano

Pobre **askoa** izango nintzateke hori pentsatuko banu. Pako Aristi

Handik gutxira hor ekarri zuen nire gaita hori, polit **askoa**. Pako Aristi

Etxe handi **askoa**, zutabe zuri eta guzti... Xabier Paya

Gisa horretan, Virginako txalupa bat idoro zuten, otzan **askoa**, zeinaren kapitaina kuakero fede-kartsu bat baitzen, Knot izenekoa. Juan Garzia

Hiretzat erraz **askoak** izango dituk! Urtzi Urrutikoeetxea

8 ***argi asko***

Bestelako komentariorik merezi ez duena, **argi asko** ulertzen baita. Xabier Mendiguren Elizegi

Atzo bertan, Larraitzek Urkori honelaxe esan zion, **argi asko**. Luis Elberdin

Ezkondu eta eliz-sartzeko kontua aitatu zidatenean, **argi asko** esan nion entzun nahi izan zuen guztiari: "nahi ordurako ez naiz gizonarekin lo egiten jarri!". Arantxa Iturbe

Zure aldetik, noski, Ostolazak eta biok **argi asko** daukagu hitzartutakoa. Migel Angel Mintegi

Argi asko zegok ekuazioa. Iñaki Iñurrieta

Argiztatu beharrekoa zuzen-zuzen argiztatu beharrean, inguruko bazter denak argiztatzen dituzte, eta noski, **argi asko** alferrik galtzen da. Berria - Gaiak

Mikel Alonsok **argi asko** dauka bere egitekoa futbolean jokatzea dela. Berria - Kirola

-Geroztik, jakin zenuen **argi asko** zer ikusten zenidan. Juan Kruz Igerabide

Nathanielek berak **argi asko** ikusi ez zuen, bada, kalesako neska letra gorriko liburu huraxe irakurtzen ari zela? Anjel Lertxundi

Emazteari, betiere, jendeak **argi asko** esaten baitzion gozamen handia izan zela senarra ezagutzea eta dibertigarria irizten ziotela oso. Mirentxu Larrañaga

Alabaina, letren sukaldari honek irudipena du Robert Blyk ez duela Peter Pan gogoan, zeren han **argi asko** esaten baitzaigu. Patxi Zubizarreta

9 ***asko aldiz***

Telebixtak erakutsi du lehiaketa **asko aldiz**, zorigaitzez ez dugu jastatzen ahal izan bainan itxura ederreko janaria lantua zuen Hazpandar pareak. Herria

Asko aldiz, adiskidetasuna ahaidetasuna baino estimatuagoa zen. Pablo Sastre

10 ***asko ere asko***

Zer esanik **asko ere asko** dugu gai honetaz; baina ez da erraza zuei aditzera ematea, ulertzeko motel bihurtu zarete eta. Elizen arteko biblia

11 ***asko eta asko***

Italiartzat jo zuen, italiarrak ziren-eta hondartzetako biztanle **asko eta asko**. Xabier Montoia

Begira jarriz gero, 70 eta 80ko euskal erreferente kultural **asko eta asko** PEZ dira, alegia, politikoki ez zuzenak, gaur egungo irakurketa diakroniko batetik. Iñigo Aranbarri

Jendeak erabat utzi ditu paraje haiek - jarraitu zuen andreak hitz eta pitz -; nire ama ere han jaioa zen, baina Aizpurura jaitsi zen bizitzera, beste **asko eta asko** bezala. Aitor Arana

Faxismoaren urteetan, nobelagileak eta poetak hitz eskasian gelditu ziren, eskura hitz gutxi zituzten, **asko eta asko** debekaturik baitzeuden, eta hitzak erabiltzen segitu zuten bakanek kontu handiz aukeratuak zituzten artean ere erabilgai zegoen ondare urriaren izpietatik. Fernando Rey

Zuk **asko eta asko** hezi eta ahulak indartu izan dituzu. Elizen arteko biblia

1988tik gaur arte idatzitako poemak batu ditu, baina liburua ez da urte horietan idatzitako poema guztien bilduma, **asko eta asko** kanpoan geratu baitira. Berria - Kultura

Erran gabea arte hortan badela **asko eta asko** partida ongi jokaturik irabazteko. Herria

Hark egindako doinu ospetsuaren lehen notak entzun orduko, berriz, behazuna dariola geratuko lirateke **asko eta asko**. Xabier Mendiguren Elizegi

Legegile jatorrak zein erraz eragotz lezakeen porrot errudun **asko eta asko**, eta zorigaitzak saihestu errugabe saiatuari! Juan Martin Elexpuru

Hortakotz ditu **asko eta asko** bere saretan hartzen eta galtzen. Xipri Arbelbide

Hala, 1930eko hamarraldiko Latino Amerikako zor-tituluen baliogabetze masiboaren ondoren (europar titulu-jabe txiki **asko eta asko** kiebra jota utzi zituena), finantzaketa modu berri bat etorri zen 1970eko hamarraldian, hartzekodunentzat askoz seguruagoa zena: tasa indexatutako banku-kreditu sindikatuak. Koro Navarro

" **Asko eta asko** beraiek konbentzituta sartu ziren mobidan, eta kartzelan geratu ere bai urte askotarako. Jokin Muñoz

"Andoni, gaur arratsaldean, hemen afaritara bildu garenetariko **asko eta asko** inguru honetan egin behar duten errausketa-plantaren aurkako manifestazioan izan gara. Andoni Egaña

Eta **asko eta asko** kimatzen hasiak. Txillardegi

Ipuin **asko eta asko** honela amaitzen dira: "Eta bai istorio hau bai gainerakoak hain iruditu zitzaizkion liluragarriak, bere idazkarietako bati urrezko letraz idazteko agindu baitzion, eta bere altxorrean gordetzeko". Patxi Zubizarreta

Gehienak dokumentaziorik gabeko pertsonak ziren, eta **asko eta asko** ziren artelanak eta balio handiko beste objektu batzuk eroan zituztenak. Edorta Jimenez

Jende **asko eta asko** igarotzen zen. Fernando Morillo

12 ***asko eta askotan***

Eta orduantxe errepikatzen ziren trenen txistukada luzakor haiek; beti ez bada ere, **asko eta askotan**, nire ustez behintzat, ilunabarreko argitasunean hedatuak. Txillardegi

Eta halaxe baita gainera **asko eta askotan**, eta halaxe izateaz gainera, pedagogiaren alderditik ere gauza nola den adierazteko oso formula baliozkoa; haurrentzako pedagogia, eta geure buruarentzako pedagogia: geure buruari ikusarazteko bizimoduan aurrera egitea nola den jolasik, txirristalekurik eta kulunpiorik gabeko zigor

isolamenduzko eta azkengabeko batera kondenatua izatea. Iñaki Segurola

Gainera kantua, **asko eta askotan** behintzat, elementu femininoaz lotuta dator Koldo Izagirre

13 *asko eta askotariko*

Eta hemen ere badira iritzi **asko eta askotarikoak**. Askoren artean

Badituzte savantek beste trebetasun txikiago batzuk, **asko eta askotarikoak**, Down eta Tredgold medikuek, "adimen eskaseko"entzako instituzio batetik bestera ibiliak, sarritan deskribatu izan dituztenak. Xabier Olarra

Kausak " **asko eta askotarikoak** » direla dio, baina elkarren artean harreman estua dutela askok Berria - Gaiak

Autore honen arabera, erretorika klasikoan, **asko eta askotarikoak** dira oroimenarekin loturiko alderdiak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hizkuntza baten gramatika sistema konplexua da, bere atalen artean lotura **asko eta askotarikoak** dituena. Itziar Laka

Arrazoia, hara: mutante **asko eta askotarikoak** pilatuak ziren berrogeita hamar urtean, eta haietariko zenbaitek argi eta garbi nahasten zuten animaliaren erabidea. Juan Garzia

Hauts **asko eta askotarikoak**, mota askotxotakoak doaz atmosfera aldera: batzuk jarduera industrialekoak, besteok nekazaritza jardueratik doazenak. Pello Zabala

Mota bitxi **asko eta askotarikoak** daude. Antton Olano

14 *asko izan*

Diru hura **asko zen** 1966. urteko Obaban. Bernardo Atxaga

-Asko da ! Anjel Lertxundi

Eta hori **asko da**, gehiegi da, Lezo, kantatzea debekatuta egon behar lukeen tokia da-eta Hugoren eskemetan. Koldo Izagirre

15 *asko jota*

Argumentua ezagutu ondoren, Frantzian nekez argitaratuta egongo dela pentsatu dut; edizio klandestino batean, **asko jota**. Iban Zaldua

Baina, **asko jota**, lau segundoko deserosotasuna izan zen, Dimas beste filigranaren bat kontatzen hasi zelako. Unai Elorriaga

Sugandila iheskorrak ziren, ordea, beste batzuk: harrapatu nahi zituenean, **asko jota** ere isatsa kentzea baino ez zuen lortzen. Ramon Saizarbitoria

Bizpahiru orduz egiten dut lo, **asko jota**; gero amets batek - ez - eldarnio batek harrapatzen nau. Josu Zabaleta

Kontratu guztiek kaleratzea bidegabearen truke jasoko duten kalte-ordaina 33 egunekoa izango da lan egindako urte bakoitzeko, eta 24 hilabetez **asko jota**. Berria - Ekonomia

Asko jota, bihotz bat. Berria - Kultura

Dozena bat agian, hogei bat **asko jota**. Xabier Mendiguren Elizegi

Zapateroren gobernua paritarioa da, baina begiratzen duzu eta emakumezko gehienek, **asko jota**, ume bat dute, edo ezkongabeak dira... errealitate hori hor dago. Ana Urkiza

Nazka-nazka eginda nengoen errealitatea, baita gertukoena ere, geure ondo-ondokoa, geure-geurea, beti zeharka jasotzeaz, testu eta irudien bidez, edo inoren ahozko lekukotasun zuzenaren bidez **asko jota**. Juan Luis Zabala

Zenbatetan ez ote dugu salatu hemen jaso eta hemendik bidaltzen ditugun euskarazko eskutitzak atzerapen handiarekin iristen zirela - hogei egun, hilabete -, erdarazkoek, aldiz, **asko jota** astebete behar izaten zutenean. Jokin Urain

Bitarte horretan, **asko jota**, agurren bat urrunetik edo begiratu gurutzatu batzuk, keinatze eta guzti akaso. Xabier Mendiguren Elizegi

New Yorkeko erietxeetan, ordea, 62.800 ohe daude soilik, eta, **asko jota**, 12.000 libratuko lirateke. Berria - Gaiak

Martxoaren lehenetik argindarra egunero **asko jota** bi orduz izaten da. Berria - Mundua

Leon zure gelatik irten orduko, leihotik ortziari so geratu zintzaizkion berriz eta, **asko jota**, ordu erdi baino lehen gainean egongo zela ekaitza, horixe erabaki zenuen. Hasier Etxeberria

Edo, **asko jota**, gizalaba hilekoarekin dagoenean egitekoa. Luis Elberdin

-Erlijioso, **asko jota**; erlijioso. Fernando Morillo

Hilabete batzuk **asko jota** ... Xabier Paya

Asko jota, atxiloketen kontrako manifestaldiren batera joango duk, baina hire izenik ez duk inon agertuko. Unai Iturriaga

16 *asko moduzko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Baina, ezetz gutxi batzuek besterik gogoratu oraingo euri jasez, uda **asko moduzkoa** egiten badu eta pantanoak erdi husten hasten badira? Konturatu al zarete, azken urteetan, nekazari nahiz abeltzainek lehorterik ez duten arren, pantanoak erditik behera hasiz gero lehortea dagoela jakinarazten digutela? Kaletarren lehortea esan beharko litzaioke baina, denona bihurtzen digute. ETC-prentsa

Baziran buru gañetik lurrerañoko jantziak txano ta guzti, eta baziran jantziaren bearrez zarpallez josiak, galtza putzak; baziran buru-jirako zapi zuriekin, buruko gorriak zituztenak eta gabe zebiltzanak, eta **asko moduzko** burukoekin zijoazenak. ETC-prentsa

Ez **asko moduzko** maitasun beraxka, biguinkeriazkoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *askoz*

Har ditzagun, konparazio batera, beste sei izen, Joxemielen batela baino **askoz** indartsuagoko ontzi batek ekarriak: Up, Down, Top, Bottom, Strange eta Charm. Iñaki Segurola

Kaleetan ez ziren ikusten aurreko urteko nire azken bisitan baino **askoz** auto gehiago. Joseba Urteaga

Ranchin eta Kalkutan Ahmedabaden baino **askoz** gaizkiago ibili nintzen. Gotzon Garate

Jacques Kohnek denbora luzea eman zuen, normalean behar izaten dena baino **askoz** luzeagoa, telefono deia egiteko. Koro Navarro

Ez, ez zegoen eroturik, hori baino **askoz** konplexuago, **askoz** makurragoa zen kontua. Aritz Gorrotxategi

Askoz erosoagoa izango zen denentzat lantegiko jangelan bazkaltzea; garestitxoa, ordea, familia batentzat. Eskarne Mujika

Hegaztiak, ardiak edo katuak bezala, baina **askoz** denbora luzeagoan. Luis Elberdin

Bestela, gizakiak erredimitzeko lurrera etorri eta gurutzean hil ordez, ez al zitzaidan **askoz** errazagoa izango besterik gabe horiek suntsitzea? Koldo Biguri

Aitak alde eginda, Jennyk baino **askoz** bihotzondoko handiagoa izan zuen bere ahizpa gazteak, Jessenyk. Gotzon Garate

Robert Scholesen esanetan, hirurogeita hamar urtetik gora dira kritikak Joyceren artea zehatz-mehatz aztertzen duela, baina Dublindarrak lanaren inguruan egin diren garrantzizko kritika-lan gehienak **askoz** geroagokoak dira. Irene Aldasoro

Orain daudenak baino **askoz** indartsuagoak izango dira. Fernando Morillo

Hargatik, ez dut erraten gertatu ez zenik: genetika, jende izpiritua baino **askoz** irekiago baita, beharrik! Itxaro Borda

Hau da, nahasketa eta moldaketak **askoz** errazago egin litezke zakur jendearekin. Gotzon Garate

Horregatik, gauza batzuk **askoz** hipotetikoago azaltzen dira beste batzuk baino. Lourdes Oñederra

Aintzirari Küp deritza, antz handiagoa duelako putzu batena aintzira batena baino, sakona baita eta ez larrain bat baino **askoz** handiagoa. Fernando Rey

Ez dira horiek beren benetako izenak, **askoz** arruntagoak baizik, baina ez dira emakume arruntak, musikariak dira, jaun noble eta txit prestuen maitaleak ere bai. Felipe Juaristi

18 *askoz ere*

Askoz ere errazago egiten duk bertsotan horrela! Andoni Egaña

Baina halako batean, poz haren guztiaren erdian, Billek Jerryri begiratu eta zenbatez zaharragoa ematen zuen Jerryk pentsatu zuen, hogeita bi urte baino **askoz ere** gehiago. Koro Navarro

Denek dakite, oso argi ez bada ere, gure begia gauzen argitasuna eta kolorea ikusteko prestaturik dagoela; baina **askoz ere** gutxiagok dakite gauza horien espaziozko mugak, haien ertzak ere atzemateko prestaturik dagoela. Josu Zabaleta

Gauza jakina da -zioen marmarka senarrak- sexu-ekintzak **askoz ere** atsegin handiagoa ematen diola emakumeari gizonari baino. Juan Garzia

Horregatik da **askoz ere** errazagoa gezurra esatea gizon baten hitzei buruz, ekintzei buruz baino; izan ere, azken hauetan, zenbat eta frogatzeko gauza gehiago ekarri, orduan eta bitarteko gehiago ematen zaio epaituari bere burua zuritzeko. Juan Martin Elexpuru

Adimena edo gogoa begiak edo ikusmen arrunta baino **askoz ere** nobleagoa dela badaki, eta adimenaren bidez, Jaungoikoak lagunduta, giza adimena Jaungoikorantz abiatzen dela, egiazko errealitateen, hau da, Platonen ideien bidetik. Imanol Unzurrunzaga

Mugimendu gutxiko aireportua da Caselle, Torino bezalako hiri bati legokiokeena baino **askoz ere** txikiagoa: kilometro gutxitara dago Milango Malpensa, eta hark betetzen omen ditu torinotarren premia gehienak. Anjel Lertxundi

Nini guztiz mindu zen, eta ohar batzuk egin zituen, erdi begirunez erdi mingaiztuta, **askoz ere** hitz gogorragoetarako sarrera besterik ez zirenak. Josu Zabaleta

Esan beharra dago beste sexu-jarduera batzuk **askoz ere** maizago agertzen direla haren obretan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta ilea... **askoz ere** dotoreago egongo zinen ile motzarekin. Xabier Paya

Kanta ingeles berriek **askoz ere** gehiago txoratzen zuten. Fernando Rey

Lopeztarrak **askoz ere** dotoreagoak, finagoak eta modernoagoak ziren gu baino. Fernando Rey

Erantzunak ez zuen Joakin **askoz ere** lasaiago utzi, baina ostikadarik ez hartzeko aukerak handiagoak zirela iruditu zitzaion. Iban Zaldua

Eta neskarekin batera sartutako usain-nahaspilak **askoz ere** gauza gehiago esan zizkion, burua lehertzeraino ia; haien oroitzapen hutsak min ematen zion. Iban Zaldua

Héraclius doktorea arratsean etxeratzen zenean etxetik irtendakoan baino **askoz ere** gizenago itzuli ohi zen ia beti. Josu Zabaleta

19 *askoz ere hobe*

Uste dut **askoz ere hobe** izango duzula niregandik jakiten baduzu. Mirentxu Larrañaga

Askoz ere hobe sentituko nintzen hemen zaindaritzan egotera beharturik ez bageunde. Agustin Otsoa

Zure egoera ona zen, oraingoa baino **askoz ere hobea**. Jose Morales

Aldarte askoz ere **hobe** batez zegoen aita. Anjel Lertxundi

20 *askoz ere hobeki*

Askoz ere hobeki prestatuak daudela. Berria - Kultura

Jendeak "pneumatiko" hitz landu eta dotorea, eta ez "neumatiko" herriko hitz kaxkarra, erabil dezan, azken honek, aurrekoak ez bezala, euskararen fonetika legeak **askoz ere hobeki** betetzen baldin baditu ere. Pello Salaburu

21 *askoz ere hobeto*

Askoz ere hobeto sentitzen zen Jerry animatzen ari zela ikusita. Koro Navarro

Jar gaitezen eroso, horrela askoz ere **hobeto** mintzatuko gara. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ziur naiz askoz ere **hobeto** pasatuko zenukeela beste milaka milioi lekutan. Mirentxu Larrañaga

Ondo asko ezagutzen haut, herorrek heure burua baino **askoz ere hobeto**. Jose Morales

Etorri nahi ez badute, askoz ere **hobeto**. Hasier Etxeberria

-Eta bi aldatzea balego, **askoz ere hobeto**. Koro Navarro

Askoz ere gehiagotan eta **askoz ere hobeto**. Luis Elberdin

· Azterketa horrek diraueino txindurri edo beste xomorroren bat azaltzen bada, askozaz ere **hobeto**. Bernardo Atxaga

22 *askoz gehiago* *(**560** esaldi, **127** liburu eta **268** artikulutan; ETCn **6.294** agerraldi)* ik beherago **12.**

Osagai horiek eta **askoz gehiago** ditu gaurkoak. Berria - Harian

Askoz gehiago luzatu gabe abiatu ginen gure burdina puska hondatu hartara. Koldo Izagirre

Mundu honetan **askoz gehiago** jasoko du, eta datorren munduan betiko bizia. Elizen arteko biblia

Unibertsitatea ikastola baino askoz serioagoa dela eta, beraz, askoz **gehiago** aspertu beharra dagoela. Iñaki Segurola

Zainzurien buruak % 50 proteina dauka, xerrak baino **askoz gehiago**. Irene Aldasoro

716 mendizale orotara, jaz baino **askoz gehiago** beraz. Herria

Diru pixar bat neukan aurreztuta -mila duro edo, ez **askoz gehiago**- eta huraxe inbertitu nuen neure alfabetatzean. Xabier Mendiguren Elizegi

-Zuk **askoz gehiago** dezakezu, Joantxo, joan den ikasturteko koadernoetan ikusi dudana baino -jarraitu zuen berean Adelak. Juan Kruz Igerabide

Gizakiak ez du behar litro erdi bat ur baino **askoz gehiagorik** egunean."Arte plastikoak" esapideak ez du, beraz, oso zabaldua egonagatik ere, lehen "irudiaren artea" esanez adierazten zena baino **askoz gehiagorik** adierazten. Irene Aldasoro

Jesusen mezua entzutean, **askoz gehiagok** sinetsi zuten. Elizen arteko biblia

Askoren zoritxarra beste **askoz gehiagoren** kontsolagarri ez al da? Harkaitz Cano

Azken aldi honetan nik baino **askoz gehiagotan** ikusten duzu. Sonia Gonzalez

23 *askoz hobe* *izond*

Eta orgasmo askoz **hobeak** ere izan nituen. Karlos Zabala

· "Hara", esango dio, "askoz itxura **hobea** duzu". Oskar Arana

-Eskerrik asko -esan zion Joxe Marik petrikiloari, askoz itxura **hobearekin-**. Juan Kruz Igerabide

Jesusen jaitsierakoa baino askoz lezio **hobea** izaten zen hura. Patziku Perurena

· *adlag* -Bai, zuk segi zeurean -esan zion Ronek-, **askoz hobe** guretzat. Iñaki Mendiguren

Tira, adiskidea, **askoz hobe** huke hau guztia argituko bahu behingoz. Antton Olano

Askoz **hobe** duzu hitzik ez ematea, emaniko hitza ez betetzea baino. Elizen arteko biblia

Hipotesien eremu zingiratsuan ibiltzea baino **askoz hobe** da isilik egotea. Berria - Kirola

Calo hizkuntzak baino **askoz hobe** gorde ditu erromantxeraren erroak eta gramatika. Berria - Harian

24 *askoz hobeki*

Gaur egun **askoz hobeki** dakigu hori. Jon Alonso

-Askoz hobeki egoten da hemen -esan nion. Fernando Rey

Ez zuen gaizki egin emakumeak, ez; baina askoz **hobeki** ere egin zezakeen. Iñaki Segurola

Askoz **hobeki** sentitzen nintzen Bergermanen bulegotik ateratakoan baino. Fernando Rey

25 *askoz hobeto*

-Horrela nahi baduzue askoz **hobeto** niretzat. Migel Angel Mintegi

Ez, Humphries jauna, **askoz hobeto** komuneko paperean. Koro Navarro

Beharbada **askoz hobeto** biziko zen berriro sekula ikusten ez baninduen... Oskar Arana

Bigarren dzangada **askoz hobeto** sartu zitzaion. Harkaitz Cano

Ez nuen ospitalera igo, etxean **askoz hobeto** zainduko nuelakoan. Joan Mari Irigoien

-Gerra aurrekoak baino **askoz hobeto** bizi dira halan be. Juan Luis Zabala

Tomek bazekien askoz **hobeto** egongo zela Harryrentzat lanean, baina [...]. Oskar Arana

Egia esateko, askoz **hobeto** gaude hori gabe -Ginnyri ezpainak dar-dar egin zion-. Iñaki Mendiguren

Askoz **hobeto** zegoen osasunez. Juan Kruz Igerabide

Guztia uste baino **askoz hobeto** joan zela esan zidan, hasteko. Joan Mari Irigoien

-Askoz hobeto, jauna. Juan Kruz Igerabide

26 *denbora askoan*

Gorpua aurkitu zen unean, ez zen pentsatu hiltzailea gai izango zenik, ez **denbora askoan** behintzat, berehala abian jarri zen ikerketari itzuri egiteko. Koro Navarro

Nik hura **denbora askoan** ezin izan nuen ulertu; Nunuk, ordea, irribarre egin eta isildu egiten zen. Ander Irizar

Gelditu egin zen, ordea, pauso batzuk eman ondoren, eta aurreneko aldiz **denbora askoan**, aurreneko aldiz heriotza eman nahi izan ziotenetik, ireki egin zitzaizkion belarriak, eta hego haizeak basoko hostailari ateratzen zion soinua entzun zuen. Bernardo Atxaga

Denbora askoan kontrazepzioa emakumeen esku utzi dute gizonek. Luis Elberdin

Amiantoa **denbora askoan** arnasteak asbestosia, mesotelioma eta biriketako minbizia eragiten ditu, besteak beste. Berria - Ekonomia

Bueno, gizona zeharo jota egon zen **denbora askoan**. Koro Navarro

Zure begietan irakurri nuen minak zulatuko dit arima **denbora askoan**. Arantxa Iturbe

27 *deus askorik*

Deus askorik ez baita izan ere, erraldoi-koxkor bat hiltzea, zein-eta harroa den; hara, ordu askorik ez da berarekin egona naizela aurrez aurre, eta... isildu nadin... Patxi Ezkiaga

Ez neukan haren alde **deus askorik** egiterik. Joxan Elosegi

Sarri eskolara joan ez eta bizitza guztirako **deus askorik** ikasi gabe gelditzen dira. Gotzon Garate

Eta aurkitu zituen argibideek ez zuten argitik **deus askorik**, eta terminologia arrotza ilustratzeko azaltzen ziren argazkiak ere ez zitzaizkion batere baliagarriak iruditu. Karlos Linazasoro

Ez, beharbada, maila kontziente batean, baina bai erreflexu baldintzatu gisa, idazmahai eskas batek **deus askorik** ez den erabiltzaile bat salatzen du erremediorik gabe; eta, zer esanik ez, lantoki batean hasi eta handik zortzi-. Juan Garzia

28 *ederki asko* *adkor* ederki.

Mendizabalek **ederki asko** laburbiltzen du kooperatiben gidaritzaren inguruan sortzen den egungo erronka eta kontraesana. Iñaki Heras

Ederki asko dakizue hobe dela borrokarik gabe lortzen den bakea odol asko isuriz lortzen dena baino. Jon Alonso

Ederki asko nekien ez zuela axola biotatik zeinek heltzen zion uztaiari; hortaz, nire lekua utzi nion eta txopara joan nintzen, upelera. Koro Navarro

Ezin gaituzte part botata utzi, konpromisoak dauzkate gurekin, **ederki asko** aberastu dira gure kontura. Jon Alonso

Ederki asko eusten zion bere betiko izaerari, xehetasunetan ere zehatz-mehatz izan beharraren maniari. Joxe Austin Arrieta

29 *eltze askotako burruntzali* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Eltze askotako burruntzalia izan da Mixel. ETC-prentsa

Horrekin batera etorri ziren euskalgintza eta kultura, historia, politika... **eltze askotako burruntzali** zaitugu... ETC-prentsa

30 *erraz asko*

ELAk salatu du Basauriko alkate Rafael Ibarguenen «autoritarismoak» eta enpresaren «setakeriak» luzatu dutela lan gatazka: «**Erraz asko** onar zitzaketen langileen eskariak, baina hitzarmena eragotzi dute behin eta berriro». Berria - Ekonomia

Jakin zuen Almak ganbaratik **erraz asko** ikus zitekeela Westerborkeko patioa, bertara ekarritako presoak zenbatzeko biltzen zituzten uneetan. Felipe Juaristi

Iniziatiba handikoak eta ausartak, **erraz asko** jo izan dutenak munduan zehar enpresa berriak martxan jartzera. Ana Urkiza

Erraz asko egingo zuen gainera: Vilmak postariaren eskuetatik jasotzen zituen beti eskutitzak, eta jakin-min bereziz aritzen zen haietan kuxkuxean; posta-kutxako giltza ere berak gordetzen zuen. Ander Irizar

Gaur egun, **erraz asko** arbuiatzen da Marxen obra. Iñaki Heras

Nekez sinistuko dugu egia neska itsusi baten ahotik, eta **erraz asko** irentsiko edozer asmakeria neska eder batek esan badu. Matías Múgica

Euskaldunek Zelatunen **erraz asko** irabazi zuten. Martin Anso

Teknologia berri horrek akatsik bako kopiak egiteko aukera eskaintzen du, **erraz asko** gainera. Berria - Gaiak

Bizia osperik gabe kentzen baitzuen horrek **erraz asko**. Felipe Juaristi

Gehienez ere, esan behar zenien ume bati izen xelebrea ipiniz gero, handiak direnean arazoak eduki ditzakeela **erraz asko**. Koldo Biguri

31 *eskerrik asko* *(ETCn **6.911** agerraldi)*

- **Eskerrik asko** -xuxurlatu nuen. Fernando Rey
- **Eskerrik asko**, Diego. Unai Iturriaga
- **Eskerrik asko**, Oute, estimatzen diat. Paddy Rekalde
- **Eskerrik asko** -esan dugu hirurok. -Bai, **eskerrik asko**... Zer zen hori? Xabier Mendiguren Elizegi

-Ez, ez, **eskerrik asko**. Irene Aldasoro

Ze ondo, **eskerrik asko**. Anjel Lertxundi

Eskerrik asko, Jauna, **eskerrik asko**. Juan Luis Zabala

- **Eskerrik asko**, **eskerrik asko**, semetxo -esan zuen gotzainak. Koldo Biguri

-Ez, **eskerrik asko**. Unai Iturriaga

-Moldatzen naiz bakarrik, **eskerrik asko**. Harkaitz Cano

- **Eskerrik asko**, andrea -esan zuen ahoa beterik. Lopez de Arana

Eskerrik asko, Cienfuegos, baina nik ez dut gura inork libra nazan hil behar honetatik. Koldo Izagirre

-Primeran, **eskerrik asko**. Lopez de Arana

-Ez, andrea, **eskerrik asko**. Iñaki Arranz

-Ondo nago, **eskerrik asko** -esan zion-. Iñaki Mendiguren

-Oso ondo, **eskerrik asko** -erantzun zion Harryk, egindako erosketa guztiekin bera, Ron eta Hermione inguratu zitzaizkionean. Iñaki Mendiguren

-Katilukada bat te, besterik ez, **eskerrik asko** -erantzun zuen Williams andreak. Koro Navarro

Eskerrik asko, bihotzez. Mirentxu Larrañaga

-Lanorduetan ez, baina **eskerrik asko** hala ere. Koro Navarro

Eskerrik asko afari eta ikuskizunagatik, Congo. Lopez de Arana

-Gabon ba, izeba Kate, eta **eskerrik asko** gau atsegin honengatik. Irene Aldasoro

-Tira, agur eta **eskerrik asko** bisitarengatik -esan zuen lehor emakumeak. Lopez de Arana

Eskerrik asko etortzeagatik! Unai Iturriaga

Eskerrik asko, **eskerrik asko** nire eginbeharra horrenbeste erraztearren. Oskar Arana

· Txibista deigarri batez hornitutako fardela eman zion eta "**eskerrik asko**" lotsatu batekin batera jaso zuen. Josu Landa

32 *gutxi-asko*[1] (izenondo baten ezkerrean)

Alde batetik, grina **gutxi-asko** tristeak (pasiboak) zeuden, **gutxi-asko** bozkariotsuak (aktiboak). Piarres Xarriton

Eboluzioak, horrenbestez, honelako itxura zuen: prozesu **gutxi-asko** lineal eta jarraitu bat, proteinen zer-nolakoa aldarazten zuten mutazioen ondoriozkoa. Juan Garzia

Gauza horien gainazalak egitura fin bat du, **gutxi-asko** erregularra izan daitekeena. argitasunaren edo koloreen aldakuntza **gutxi-asko** jarraituak. Josu Zabaleta

33 *gutxi-asko*[2] *adlag*

Begiak etengabe ari zaizkigu **gutxi-asko** mugitzen. Josu Zabaleta

Zapatariak adierazi egin zion zein ibilbide egin zuen hildakoaren etxera iristeko, non estali zizkioten begiak, eta **gutxi-asko** nondik nora eraman zuten. Patxi Zubizarreta

Esperimentu guztiak bat datoz, **gutxi-asko** . Josu Zabaleta

Eta hori bera egin zuela beste haurrekin ere, **gutxi-asko** . Juan Kruz Igerabide

Gainditu daitekeen? Nik uste, **gutxi-asko,** guztioi uzten digula aztarnaren bat. Berria - Harian

Besteek, **gutxi-asko,** paso egiten zuten. Iñaki Iñurrieta

Aitonak, osabak, aita, **gutxi asko,** denak basoan ikazkin arituak izaki. Patziku Perurena

Asmatuko nuke **gutxi-asko** zertaz ari diren. Pako Aristi

Aldez aurretik **gutxi-asko** sinbolizaturik dauden eskemak erabiliz. Josu Zabaleta

34 ***gutxi-asko***[3] (bestelakoetan)

Irudiak badu forma bat, **gutxi-asko** objektu bati dagokion ezaugarri bat. Josu Zabaleta

Gutxi-asko dozena pare bat gutun-orri ziren. Eduardo Matauko

35 ***gutxi edo asko***

Ez da beraz, nire bertze abenturetan bezala, errendatze **gutxi edo asko** abantailatsu soil bat, profitatzen errazagoa izaten dena nor bere buruaz harrotzeko baliagarria den baino; erabateko garaipena da, gudaldi lazgarri batez erdietsia, eta guda lan jakintsuz deliberatua. Jon Muñoz

Gaur egunean, **gutxi edo asko** , edozein poetak, edozein narratzailek, dauka oinarrizkoena: ofizioa eta hizkuntzaren ezaguera. Hasier Etxeberria

Parrean ez denean, norbera **gutxi edo asko** galtzen -itxuraz edo nolabaiteko ustez, behintzat- geratzen bada zerbait/norbait maitatzean, sor dakizkioke problemak. Jenaro Garate

Baina horrez gain, badaude zenbait ezaugarri **gutxi edo asko** , bakarrik Araban dokumentatzen direnak. Berria - Kultura

Gutxi edo asko , presakako gaur egungo bizitza modernoa jasaten dute, eta eguneko ordurik gehienak harturik dituzte. Andoni Egaña

Eta bidaiari guztiek, fedea zeinahi zutela ere, nonahikoak zirela ere, diru pixka bat uzten zuten, **gutxi edo asko** , haritzaren pean. Fernando Rey

36 ***inor asko***

Arcelorrez jabetzeko egindako erosketa eskaintza oldarkorrak aurrera egin dezan ahal bezainbeste babes lortu nahi du, baina oraingoz ez du **inor asko** konbentzitu. Berria - Ekonomia

-Inor askorik gabe. Anton Garikano

Duela hamabost bat urte Bob Geldof kantariak Etiopiako lehortean jasotako irudiek gaur ez lukete **inor asko** asaldatuko. Iñaki Heras

Ez dabil **inor asko** . Pako Aristi

Azken urteotan euskal ziklismoaren zutabe izan diren txirrindulariak badoaz pixkanaka-pixkanaka, denboraren kolpeak eta nekearen ajeak daramatza, eta atzetik, bultzaka ez da **inor askorik** sumatzen. Berria - Kirola

37 ***lasai asko*** oso lasai.

Mister Lewin, gizon-puska hura, lo zegoen **lasai asko,** irribarrez. Joxe Austin Arrieta

-Begiratu egin behar, erosi baino lehen -erantzun zion **lasai asko** Normandiar ederrak. Karlos Zabala

-Jakina -ihardetsi zuen Charliek, **lasai asko,** gezurretan-. Mirentxu Larrañaga

Ez nituen jadanik ikusten emakumeak, kizkurgailuak buruan, **lasai asko** paseatzen. Jon Muñoz

Lasai asko bizi ginen, hainbestean gure zekenkeria burges txikian hondoratuta. Eduardo Matauko

Okilak, ordea, **lasai asko** jarraitzen zuen belar artean mokoka, zomorroren baten peskizan. Imanol Zurutuza

Horra hor gaiztoak: **lasai asko** beti, ondasunak pilatzen. Elizen arteko biblia

38 ***laster asko***

Laster asko lotu nituen etxe dorreduna eta hango oihuen doinu atzerritarra. Anjel Lertxundi

Laster asko okertu dira agindu nien bidetik. Elizen arteko biblia

Edonor atxilo eramaten zuten **laster asko,** susmo hutsarekin sarri, eta egurra ematen zioten, nola gainera, eta urtetarako espetxeratu gero, legez kanpoko alderdi politiko batean zebilelako, besterik gabe. Juan Kruz Igerabide

Eskola gabe eta entenditzeko moduan jardutera derrigortu ezkero, mutu lirateke **laster asko** bere ustetako jakintsu informatu asko eta asko. Iñaki Segurola

39 ***ondo asko*** *(**135** agerraldi, **44** liburu eta **19** artikulutan)* oso ondo. ik **ongi 8**.

Ondo asko zekien saltsa gaizto batean ari zela nahasten, baina indarren batek bultzatzen zuen. Koro Navarro

Bai bainekien, **ondo asko** gainera, galduak ginela, baita itsasontzi hamar aldiz handiago batean egon bagina ere. Koro Navarro

Atentatu haietako asko suizidatzat jo daitezke, egileek **ondo asko** baitzekiten berehala atxilotu eta hil egingo zituztela. Jose Morales

Ondo asko ezagutzen haut!, zital hutsa haiz, ez didak haiengatik askorik ordainduko! Jose Morales

Hitz batez, historiak **ondo asko** irakasten digu lege penalek inoiz ez dutela suntsipena beste ondoriorik izan. Iñaki Iñurrieta

Ondo asko konturatzen nintzen autozentsura garbia zela hura, baina, jaten ematen dizun eskuari ez omen zaio kosk egiten eta... Xabier Mendiguren Elizegi

Argitu beharrean, ordea, gauzak nahasten ari ginen eta gure zenbait hanka-sartze **ondo asko** haizatu zituen prentsak, gu lotsagarri utziz, haizatzeko modukoak izan baitziren izan ere. Joxean Agirre

Gudua laburra bezain arrantza ona egin zuten gure mutilek: zortzi euskal nazionalista, Españari zioten gorrotoan nabarmendu direnak eta hamaika mendigoitzale **ondo asko** armatuak. Inazio Mujika Iraola

40 ***ongi asko*** *(**43** agerraldi, **22** liburu eta **4** artikulutan)* ondo asko, oso ongi. ik **ondo**[1] **8**.

Baina hori zen egia, eta **ongi asko** zeukan gogoan. Ramon Saizarbitoria

Ongi asko dakizu besteak baino hobea naizela, beste askok batera baino hamar bider diru gehiago irabazten dudala. Patxi Zubizarreta

Ongi asko jakin beharko nuke, ordea, Annyk ez duela inoiz ere onartuko nire aurrean zahartzea. Monika Etxebarria

Ongi asko ezagutzen duzu herrialdearen historia. Berria - Mundua

Musulmanak etorri zirenean, eta Eudonek laguntza eskatu, Charles Martelek **ongi asko** aprobetxatu zuen abagunea... J.M. Olaizola "Txiliku"

41 ***pozik asko*** oso pozik.

Pozik asko emango niokeen su! Joxe Austin Arrieta

Pozik asko jango zukeen aberatsaren mahaitik lurrera botatzen zutena. Elizen arteko biblia

Ziur nago **pozik asko** emango dizutela argibide gehiago. Antton Olano

Etxekoandreak olio frijituaren usaina zuen, eta telebista batean **pozik asko** lana egingo zukeen neska baten izeba zen. Anjel Lertxundi

San Franciscora ere joan gara Sarasua, Egaña eta hirurok, **pozik asko** . Joxerra Garzia

Santxo [...] ez zegoela ikusiz, halako manta-joko harena esan zien; bai **pozik asko** entzun ere. Patxi Ezkiaga

42 ***seguru asko*** *(**548** agerraldi, **94** liburu eta **73** artikulutan) adlag* aukera gehienen arabera.

Seguru asko ez. Xabier Mendiguren Elizegi

Seguru asko -halaxe pentsatu zuten-, lo zeuden andreak eta haurrak bakean utziko zituzten. Gotzon Garate

Seguru asko izen-aldaketa transkripzio-errua da. Askoren artean

Baina **seguru asko** , halaxe uste zuten denek, haien grebak, haien sakrifizioak, irabazia zuen saria ordurako. Felipe Juaristi

Inpresioarengatik **seguru asko** , pixa egin duzu galtzetan, eta agerian gelditu zaizu marka. Rafa Egiguren

Ordubete lehenagoko deia ere haiena izango zen **seguru asko** , baina nik artean ezin atenditu. Joxe Austin Arrieta

Handiagoak ere esango zizkion, **seguru asko**, emakumeak bere pistola eskuan zuela isilik jarraitzen zuen bitartean. Joxean Agirre

Letretakoa monsieur Nestor izango zela **seguru asko**, ordu arte frantsesa eman ziguna. Bernardo Atxaga

Ritaren lagunen bat izango zen, **seguru asko**, hura zeramana. Hasier Etxeberria

Costaren mehatxuagatik ez balitz, **seguru asko** ez zitzaidan inoiz burura etorriko harresiaren trazatua errepasatzea. Jon Alonso

Baina zergatik eskaini diot hainbesterainoko arreta **seguru asko** interes handirik ez duen Tortoren eta Agustin izeneko agure armairutxoaren arteko solasari? Anjel Lertxundi

Apal txiki batzuk besterik ez; aspaldiko artxiboren baten hondakinak, **seguru asko**. Rafa Egiguren

-Dirudunen bat, **seguru asko**. Oskar Arana

Sukaldean egongo dira **seguru asko**. Arantxa Iturbe

Ez da esku horren laztana nahi izango duen inor **seguru asko**. Joseba Sarrionandia

43 ***seguru askorik*** seguru asko.

Hainbat artikulu idatzi eta argitaratu nituen, gainera, tarte horretan, orain **seguru askorik** -ez naiz, egia esan, bilatzen saiatu ere egin baina- inongo hemerotekatan ezin aurkitu ahal izango liratekeenak. Juan Luis Zabala

Ohikoena eta errazena egin nuen horretan ere **seguru askorik**, egokitzen zitzaidana. Juan Luis Zabala

Betiko **seguru askorik**. Juan Luis Zabala

44 ***urte askotarako*** *(orobat **urte askotako**)* urtebetetze eta kidekoetarako formula.

Wilmarth andereñoak, haiek ezagutu izanaz kontent, **urte askotarako** esan zien bozkarioz. Mirentxu Larrañaga

Jakinarazia da bozkatzeko baimena ukan dezakela bakarrik 2003ko **urte saria** ordaindua duenak. Herria

Barkatu, oraindik ez dut nire burua aurkeztu: Asier Urbieta, **urte askotarako** -begi bat kliskatuz. Eider Rodriguez

-Zorionak berriro, eta **urte askotarako**!«Bejondeizula eta **urte askotarako**, Esteban!», kantatu zioten. Javi Cillero

45 ***ziur asko*** *(**283** agerraldi, **42** liburu eta **38** artikulutan) adlag* aukera gehienen arabera. ik **seguru 15**.

Ziur asko sekulan egin dudan jokaldirik bizkorrena izango da. Oskar Arana

Ziur asko deialdia otsailean egingo dute. Berria - Kultura

Ziur asko halakoxea naiz orain ere. Jon Muñoz

Bai, **ziur asko** bai, maite nuen. Oskar Arana

-**Ziur asko**, Juanin, **ziur asko**; ilunenak, izan ere, ohartu ere egiten ez garen horiek dira. Juan Kruz Igerabide

Baina **ziur asko** ez zen ausartu hartara. Juan Garzia

Beno, **ziur asko** nekatuta, erreta nengoen uneren batean esango nuen hori. Berria - Kirola

Pentsatzen jarrita, **ziur asko** ez zen oso ohikoa izango Magiako ministroa bera adin txikikoen magia-kontuetan sartzea ere. Iñaki Mendiguren

Hiltzailea, Alejandro Claret Martorell, kazetaritza ikasle bat da, **ziur asko** ideia erradikalak dituena, hogeita hamar bat urtekoa. Jon Muñoz

Gaztelaniaz esan zuen, **ziur asko** zaila egiten zitzaiolako ideia euskaraz adieraztea. Ramon Saizarbitoria

Antzinako zentzumenetan, usaimena izango zen **ziur asko** eboluzioaren eszenara agertzen lehena. Irene Aldasoro

Hain okertuta zegoen, esan baitzitekeen magiaz bakarrik zegoela zutik (eta, **ziur asko**, hala egongo zela pentsatu zuen Harryk). Iñaki Mendiguren

Gauzak zeuden bezala, **ziur asko** gosez hilko zen han bertan. Iñaki Mendiguren

Nik hamazazpi urte izaterako, gerra amaitua izango zen nolanahi ere, **ziur asko**. Mirentxu Larrañaga

Begirada bat bota zioten elkarri: Ruche jaunak aintzat hartuko zuen, **ziur asko**! Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 33 aldiz agertzen direnak)

aldaketa asko (81); **arazo asko** (89); **argi asko** (53); **arrazoi asko** (48); **asko aldatu** (186); **asko ari** (99); **asko atera** (39); **asko aurreratu** (38); **asko balio** (47); **asko behar** (124); **asko beharko** (33); **asko bezala** (97); **asko bildu** (71); **asko bizi** (49); **asko da** (74); **asko dago** (351); **asko dago egiteko** (34); **asko ditu** (146); **asko ditugu** (34); **asko dituzte** (40); **asko du** (70); **asko dugu** (49); **asko dute** (39); **asko egin** (551); **asko egin behar** (68); **asko egon** (59); **asko eman** (207); **asko erabiltzen** (40); **asko eragin** (33); **asko esan** (98); **asko esaten** (51); **asko eskatzen** (37); **asko estimatzen** (41); **asko eta asko** (490); **asko etorri** (52); **asko ez** (315); **asko ez dela** (34); **asko ez dira** (39); **asko ezagutzen** (36); **asko ezagutzen** (70); **asko falta** (113); **asko galdu** (112); **asko galtzen** (41); **asko gertatu** (37); **asko gustatu** (106); **asko gustatzen** (201); **asko harritu** (35); **asko hartu** (44); **asko hazi** (33); **asko hil** (70); **asko hitz egin** (72); **asko hobetu** (105); **asko ibili** (40); **asko ibiltzen** (37); **asko idatzi** (45); **asko igaro** (43); **asko ikasi** (118); **asko ikasten** (39); **asko ikusi** (80); **asko irabazi** (39); **asko irakurri** (39); **asko iraun** (33); **asko izan** (433); **asko jaso** (57); **asko joan** (33); **asko jokatu** (58); **asko jota** (114); **asko kostatu** (63); **asko lagundu** (108); **asko laguntzen du** (37); **asko maite** (138); **asko pasatu** (59); **asko pentsatu** (35); **asko pozten** (47); **asko poztu** (67); **asko sartu** (51); **asko sartzen** (34); **asko sortu** (52); **asko sufritu** (100); **asko utzi** (40); **asko zabaldu** (41); **asko zegoen** (77); **asko zekien** (33); **asko zeuden** (55); **asko ziren** (60); **asko zituen** (54); **asko zor** (38); **aukera asko** (137); **azkar asko** (53); **berri asko** (46); **bertze asko** (42); **beste asko** (378); **beste asko bezala** (38); **beste gauza asko** (69); **buelta asko** (34); **denbora asko** (347); **diru asko** (211); **duela urte asko** (33); **ederki asko** (114); **egiteko asko** (42); **egun asko** (69); **emakume asko** (78); **erraz asko** (41); **eskerrik asko** (660); **ez asko** (70); **ez da asko** (54); **ez dira asko** (45); **ez du asko** (37); **ez zuen asko** (49); **gai asko** (38); **galdera asko** (62); **garbi asko** (42); **gauza asko** (862); **gauza asko egin** (43); **gauzak asko aldatu** (37); **gazte asko** (72); **gizon asko** (43); **gol asko** (48); **gutxi asko** (122); **haietako asko** (81); **herritar asko** (69); **hitz asko** (37); **hori asko** (60); **horietako asko** (185); **horrek asko** (123); **huts asko** (37); **jende asko** (623); **jokalari asko** (73); **kontu asko** (49); **lagun asko** (77); **lan asko** (261); **lan asko egin** (74); **lasai asko** (146); **laster asko** (36); **liburu asko** (61); **modu asko** (46); **mota asko** (60); **obra asko** (40); **on asko** (62); **ondo asko** (135); **ongi asko** (43); **oraindik asko** (79); **ordu asko** (84); **partida asko** (63); **puntu asko** (44); **seguru asko** (549); **talde asko** (61); **ur asko** (33); **urte asko** (459); **zalantza asko** (66); **ziur asko** (284)

denbora askoan (65); **urte askoan** (169)

askok bezala (79); **askok egin** (50); **askok ere** (89); **askok eta askok** (116); **askok ez** (253); **askok ez dute** (80); **askok ezin** (39); **askok uste** (68); **beste askok** (208); **diote askok** (39); **emakume askok** (72); **eta beste askok** (52); **gazte askok** (48); **herritar askok** (75); **horietako askok** (57); **jende askok** (305); **jokalari askok** (33); **talde askok** (41); **zale askok** (37)

---

askoan (denborazko izen baten eskuinean) *adlag* denbora luzean. ik **luzaz**; **luzaro**.

Bueno, gizona zeharo jota egon zen denbora **askoan**. Koro Navarro

Hantxe egon ziren urte **askoan**, 1958an Irakera itzuli ziren arte, erregea erori zenean hain zuzen. Juan Kruz Igerabide

Proba fisiko bereziki gogorra pasatu izan banu bezala, zaldi gainean edo oinez ordu **askoan** ibili banintz bezala... Xabier Olarra

Nik hura denbora **askoan** ezin izan nuen ulertu; Nunuk, ordea, irribarre egin eta isildu egiten zen. Ander Irizar

Urte **askoan** zakurrei begira egon eta ahoratzen duten belar bakarra almitza dela esan behar. Gotzon Garate

Ez da denbora **askoan** egon behar banku batean zaintzaileen buruaren telefonoa buruz jakiteko. Xabier Olarra

Bada, urte **askoan**, gizon bat hunkigarria iruditzen zaidan lehen aldia da. Monika Etxebarria

Aterki beltzez inguraturik egon zen ordu **askoan**, harik eta epailea gorpua altxatzeko agindua ematera azaldu zen arte. Ramon Saizarbitoria

Eta halaxe eman zuten ordena, Elizaren egutegian bildu zena, eta mende **askoan** bete izan dena. Pello Zabala

Urte **askoan** borrokatu naiz haren alde. Joxan Elosegi

Yvan ez zen nire lekuan jartzen, aita, ama eta hirurok urte **askoan** bizi izanak ginen Garenne-le-Mouilleko babes ofizialeko etxebizitza ustel horietako batean, eta Yvanek ez zekien zer zen hura. Joxan Elosegi

Lizarran egun **askoan** geratzeko asmoa duzu? Koro Navarro

Urte **askoan**, Anfisa Andreievna ahaide txiki zuen kondesa baten etxezaina izan zen. Jose Morales

Hire atzetik joan nahi diat nik, urrun-urrun, noranahi, denbora **askoan**. Eskarne Mujika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

askoan aritu (4); **askoan bizi izan** (3); **askoan iraun** (3); **aste askoan** (3); **baina urte askoan** (4); **da denbora askoan** (4); **da urte askoan** (3); **denbora askoan egon** (4); **denbora askoan ez** (3); **denon begibista askoan** (3); **dira urte askoan** (5); **egun askoan** (8); **ere denbora askoan** (3); **ere urte askoan** (4); **hilabete askoan** (3); **mende**

askoan (3); **minutu askoan** (5); **ordu askoan** (6); **urte askoan bere** (3); **urte askoan bizi** (3); **urte askoan ez** (3); **urte askoan izan** (4); **urte askoan zehar** (4); **zen urte askoan** (14)

---

askodun 1 *izlag* asko duena.

Erabaki genuela bakarka errima **askodun** bertsoetan aritzea? Andoni Egaña

Begi **askodun** makila bat. Askoren artean

Horregatik zuntz **askodun** elikagaiak (frutak, barazkiak) eta haragi gorri gutxi dituen dieta egiteko aholkatu zuten. Berria - Gaiak

2 *margo-askodun izond*

Borondatea **margo-askoduna** da, kolore mundutiarrez hornitua, lakarra, erabat kanpora emana. Joan Mari Lekuona

---

askoetsi *izond* askotzat hartua, asko dela uste duena.

Hiritar petoa ematen zuen, behar bezala jantzia, beti alai eta **askoetsia**. Josu Zabaleta

---

askogura *izond* askonahia.

Horregatik esan dezakegu ikerketa berri horien atzean betiko arazo etikoak daudela: eugenesiaren tentazioa, jabego pribatua eta enpresen neurrigabeko **askogurak**, besteak beste. Askoren artean

---

askojakin *izond* asko dakiena.

Askojakin bat naizela iruditzen zaio, berak ezer ez dakien gauzez nik halako bi hitz egiten duelako. Josu Zabaleta

Askojakina izan beharrik ez dago gauzak horrela gertatu zirenik zalantzan jartzeko. Bernardo Atxaga

Artean ez zekien ezen Rusen -Moskun eta beste hirietan- badirela gizaki **askojakinak** zeinen bizitza ezin azalduzko enigma baita. Jose Morales

Azken lanbide honetan, akademiko **askojakinen** buruetan, arrazoi erabakitzailearen ametsak (edo loak) mustroak sortarazten ditu erremedio gabe. Iñaki Segurola

Dunga letragabea da eta gizon zuri **askojakinek** jakinarazi diote letrak falta zaizkiola eta letramotza dela: letra engainagarrien mundura botatzera doa bere burua, Historiaren bortxaz. Iñaki Segurola

Brayfugle irakasle **askojakinak**. Xabier Olarra

Preterito **askojakinak** argitu digunez, sabela betearekin jokalariak sutsuago aritzen omen dira zortearen makina eta mahaien aurrean. Patxi Zubizarreta

Jordi **askojakinak** -beti iraganeko pasadizoak kontatzen dituenez, bidailagunek Preterito deitzen diote aurpegira- esan digu behin gizon batek bere burua altzairuzko upel batean bota zuela urjauzietan behera, pipiritaka. Patxi Zubizarreta

Ez nekien zer esan, izan ere nire anaia gizagaixoak beti izan nahi zuen erantzunen bat eta ez zuen aho **askojakin** hura itxi nahi. Pello Lizarralde

Asto **askojakina** ni! Eta inork, **askojakin** ergel horiek batez ere, ez gaitu ulertzen, horiek uste duten guztia baino askoz ere sentipen finagokoak eta gure pentsamoldean askoz ere aurreratuagoak garelako. Josu Zabaleta

Ez dut **askojakin** itxurarik egin nahi nire ezjakintasuna presakako irakurketa entziklopedikoekin estaliz. Xabier Mendiguren Elizegi

Amak hanketako mina dueneko aurpegia zuen, eta nire arrebak betiko **askojakin** airea. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
benetan askojakina (20)

---

askonahi 1 *izond* asko izan nahi duena.

Askonahiak gorde egiten ditu urrea eta zilarra, zeren eta, kontsumitu nahi ez duenez, desegiten ez diren zeinuak maite baititu. Iñaki Iñurrieta

Guk egiten dugun merkataritza hori, kortesanoek ere egin nahiko dute, eta gu baino **askonahiagoak** eta bidegabeagoak izango dira. Iñaki Iñurrieta

2 *iz* asko nahi izatea.

Nazioen **askonahia** lehian dabil munduko mugikariak lortzearren. Iñaki Iñurrieta

Eskolastikoen asmaketei zor dizkiegu merkataritzaren suntsipenak ekarritako zoritxar guztiak [...] eta printzeen **askonahiari** berorien boterearen eskumenetik at jartzen duen gauza bat ezartzea. Iñaki Iñurrieta

---

askonahiko *izlag* handinahia.

Hala ere, Andrei Ivanovitxen asmo **askonahikoak** hasieratik bertatik zapuztu zituen osabak, Onufrii Ivanovitx estatu-kontseilariak. Jose Morales

---

askorbiko

1 ***azido askorbiko*** *iz* zitrikoetan eta barazkietan dagoen azidoa.

Ez dute edarion izenik zabaldu, baina, esan dutenez, osagaien artean benzoato sodikoa eta **azido askorbikoa** (C bitamina) dituzte. Berria - Gaiak

Kritikaria ez zen sekula ere konturatu bera zela petaka horretatik edaten zuen bakarra, eta eskerrak, Andrescuk pozoi-dosi txiki batez osatzen baitzuen edukia (laudanoz, zikutaz eta **azido askorbikoz** osatutako nahasketa bitxi bat), konfiantzazko mediku batek emandako aholkuak zorrozki jarraituz. Iban Zaldua

---

askosaz ik **askozaz**.

---

askotan 1 *adlag* maiz, usu, sarri.

Askotan joaten naiz haren etxera iluntzean. Eskarne Mujika

Hizpidea, beste **askotan** bezala, gerra hasi berritan Bilbon bolo-bolo ibili zen gertakari batek sortu zuen. Inazio Mujika Iraola

Askotan sukaldean bertan aritzen naiz. Berria - Kultura

Askotan ez zen etxetik ateratzen ere, batzuetan adiskide batekin batzen zen, haur ukaiteko puntuan zen emazte bati edo eri bati bisita baten egiteko edo, kadira bat karrikara ateraturik, auzoekin kalakaldia egiten zuen, gaueko deia entzun arte. Elena Touyarou

Askotan ibilia nintzen hor gaindi, lehenik anaiarekin, gero bakarrik edo Christophekin, eta ez zitzaidan sekula burutik pasa ere zuhaitz horiek oro, banaka-banaka, ezagutu behar nituela. Daniel Landart

Begirunez egiten zuen bere lana, batzuetan kobratu barik, edo bertakoek eman zezaketen diru apurra jasoz... edo **askotan** gaztaren bat, urdaia, sagarrak eta halakoak. Paddy Rekalde

Ez didate **askotan** eskatzen, baina ez daukat inolako arazorik, ze umetan ardi artean hazi nintzen, nire aita artzaina izan zen eta. Jon Arretxe

Haserretzeko dudan erraztasuna bertan gauzatu dut, Speaker jarri diot izenburu, hedabideen diskurtsoak **askotan** ernegatzen nauelako. Berria - Kultura

-Askotan aipatzen dizkiot zuri bururatzen zaizkizun gauzak, eta bere begiz ikusi nahi izan du. Juan Martin Elexpuru

Amari **askotan** entzun nion kexua, lisatze lana zela eta; alegia, bere ametsa eserita lisatu ahal izatea izango zela. Jesus Mari Mendizabal

Askotan gogorarazi behar izan diot neureari: "ama, ni ere ama naiz". Arantxa Iturbe

Blusa kolore-alaiak, gizonak mahuka hutsik, **askotan** ukrainar erara brodatuta. Felipe Juaristi

Askotan legez, Mateok jaurti zuen harria putzuan. Koldo Izagirre

2 *asko-askotan*

-Jakina, askotan joango naiz ama bisitatzera, **asko-askotan**. Julen Gabiria

Ez **asko-askotan**, baina tarteka bai entzuten dela halako jokalari, "ezkertiarra" dela; hau da, jokalari hori ezkerra dela baloia jotzean. Berria - Kirola

3 *asko eta askotan*

Eta orduantxe errepikatzen ziren trenen txistukada luzakor haiek; beti ez bada ere, **asko eta askotan**, nire ustez behintzat, ilunabarreko argitasunean hedatuak. Txillardegi

Eta halaxe baita gainera **asko eta askotan**, eta halaxe izateaz gainera, pedagogiaren alderditik ere gauza nola den adierazteko oso formula baliozkoa; haurrentzako pedagogia, eta geure buruarentzako pedagogia: geure buruari ikusarazteko bizimoduan aurrera egitea nola den jolasik, txirristalekurik eta kulunpiorik gabeko zigor isolamenduzko eta azkengabeko batera kondenatua izatea. Iñaki Segurola

Gainera kantua, **asko eta askotan** behintzat, elementu femininoaz lotuta dator Koldo Izagirre

4 *behin eta berriz eta askotan* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Eta behin eta berriz, **behin eta berriz eta askotan**... ETC-literatura, saiakera

Galdera bera **behin eta berriz eta askotan**. ETC-literatura, saiakera

Behin eta berriz eta askotan egingo luke, familia maitea etxean egon dadin, denak batera. ETC-literatura, saiakera

Horixe gertatzen da udako picnicetan, **behin eta berriz eta askotan**. ETC-prentsa

Baina elebitasunaren inguruko diskurtsoak ere ez du balio, zure liburuan **behin eta berriz eta askotan** ageri diren testuetan irakurri dugunez? ETC-prentsa

Inguruko lantegiak beste perspektibarik ez zuten gaztetxoek antzerki lana erakutsi zuten behin, eta gustatu, eta **behin eta berriz eta askotan** erakutsi zuten gero, harik eta antzerkia egin zuten arte bizibide. ETC-prentsa

Finean, irakurle literatura zale makurrak **behin eta berriz eta askotan** irakurri beharko dituen orrialdeak, Izagirrek ez bezala behin eta berriz eta aunitzetan irakurriko ditugunak, egileak nekez itzuliko baita orri engoitik zaharrotara. ETC-prentsa

Behin eta berriz eta askotan, euskara -alegia, euskaldunak- galtzaile, euskara ikasgai zehatz batzuen hizkuntza besterik ez baita. ETC-prentsa

5 *berriz eta askotan* *(corpusean ez dago; ETCn **41** agerraldi)*

Hala, argazkilaritzaren mugan lan egin du **berriz eta askotan**. ETC-prentsa

Berriz eta askotan, erromesen legean abiatu naiz harbidean, harzuri distiratu hau bizkar-zorroan hartuta; ene diskurtsoa funtsez moldatu aldera abiatu ere:. ETC-prentsa

Eta, 'españolista'k ondo ikusiak ziren bitartean, Orixe, euskal 'nazionalismoarengatik', txarto ikusia ez ezik, salatua eta zigortua ere izan ohi zen, **berriz eta askotan**, eta salaketaren frogak euskal kulturaren aldeko ekarpenak ziren. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *maiz askotan*

Hitz multzo edo esaldi palindromoak bilatzea lan neketsua da, **maiz askotan** atarramentu gutxikoa. Iñaki Arranz

Desinfektazio automatikoaz hornituriko dutxak baizik ez ziren oraindik martxan, baina **maiz askotan** matxuratzen ziren haiek ere, bezero batzuk itoaraziz. Joxan Elosegi

Pertsonen artean gertutasun eroso bat sortzeko lagungarri onak izaten dira **maiz askotan** gustuko otorduak, eta Tolosako afari hura halakoxea izan zen gu biontzat. Juan Luis Zabala

Oso idazle oparoa, definitzen edo inongo joera edo estilotan sailkatzen oso zaila, iritzietan eta erreakzioetan harrigarria eta zuzentasun politikotik apartekoa **maiz askotan**, enigmatikoa, atzemanezina da Peter Handke. Berria - Kultura

7 *sarri askotan*

Sarri askotan bere burua lurrera bota eta, begi-espresio izugarriz, iraulka ibiltzen zen, lerdea zeriola. Askoren artean

Sarri askotan erabili da formula hau analogiaren fenomenoa bera ulertarazteko. Isabel Arrigain

Kultura baten sakonenean sustraiturik dauden sinesteek ez dute, **sarri askotan**, inolako oinarri logikorik. Juan Garzia

Lehen kolpea, lehen trauma jasanezina, **sarri askotan** gertatzen den bezala, jaunartzean jaso zuen. Karlos Linazasoro

Jesukristo dela uste du, eta **sarri askotan** elizetan ezkutatzen da. Bernardo Atxaga

Ezin zuen oso ondo ikusi; baina, **sarri askotan**, bazirudien ez zela gauza ikusten zuena ere ulertzeko. Mirentxu Larrañaga

Hainbeste urtean aurreztutakotik gastatzen hasi zen, eta kontuak atera gabe **sarri askotan**. Patxi Zubizarreta

Ozpinetako pepinoak ematen zizkion, **sarri askotan**. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aitak askotan (11); **aldizkari askotan** (6); **alor askotan** (22); **amak askotan** (7); **arlo askotan** (23)

asko eta askotan (26); **askotan aditua** (7); **askotan ageri** (8); **askotan agertzen** (13); **askotan aipatu izan** (8); **askotan aipatzen da** (6); **askotan arazoak** (6); **askotan ari** (8); **askotan aritu** (12); **askotan aritzen** (11); **askotan ateratzen** (7); **askotan aurkitzen** (6); **askotan azaltzen** (6); **askotan baino** (12); **askotan behintzat** (11); **askotan bere** (18); **askotan beste** (8); **askotan bezalaxe** (8); **askotan bi** (6); **askotan bizi** (8); **askotan daude** (7); **askotan egiaztatu** (7); **askotan egin izan** (8); **askotan egin ohi** (8); **askotan egindako** (6); **askotan egiten** (59); **askotan egon** (25); **askotan egona** (6); **askotan egoten** (13); **askotan eman** (8); **askotan ematen** (10); **askotan entzun izan** (7); **askotan entzuten** (12); **askotan erabili** (23); **askotan erabiltzen da** (6); **askotan errepikatu** (11); **askotan errepikatzen** (11); **askotan esan izan** (18); **askotan esaten zion** (6); **askotan eskatu** (15); **askotan etorri** (9); **askotan etortzen** (14); **askotan euskal** (7); **askotan ez da** (20); **askotan ez dago** (11); **askotan ez dira** (7); **askotan ez dute** (7); **askotan ezin** (12); **askotan galdetu izan** (6); **askotan galdetzen** (12); **askotan geratu** (6); **askotan gertatu ohi** (8); **askotan gertatzen da** (22); **askotan gertatzen den** (10); **askotan gogoratu** (7); **askotan gogoratzen** (10); **askotan gure** (16); **askotan hartu** (13); **askotan hitz egin** (12); **askotan hitz egiten** (17); **askotan hori** (9); **askotan huts egiten** (7); **askotan ibili** (12); **askotan ibiltzen** (7); **askotan ikus** (6); **askotan ikusi izan** (6); **askotan ikusten** (21); **askotan irakurri** (9); **askotan iruditzen** (8); **askotan izan** (29); **askotan izaten** (20); **askotan jendeak** (8); **askotan jo** (9); **askotan joan** (6); **askotan joaten zen** (7); **askotan jokatu** (6); **askotan kontatu** (11); **askotan kritikatu** (7); **askotan lan** (8); **askotan legez** (12); **askotan nahi** (7); **askotan nire** (6); **askotan oraindik** (7); **askotan oso** (20); **askotan parte hartu** (8); **askotan pentsatu dut** (11); **askotan pentsatu izan** (6); **askotan pentsatzen dut** (9); **askotan saiatu** (10); **askotan salatu** (6); **askotan sartu** (6); **askotan sartzen** (9); **askotan sentitzen** (6); **askotan uste** (10); **askotan zaila** (8)

auzo askotan (8); **baina askotan** (69); **baina beste askotan** (9); **baita askotan** (14); **baserri askotan** (8); **beste askotan bezala** (41); **beste askotan ere** (8); **beste askotan ez** (6); **beste gauza askotan** (16); **beste herri askotan** (6); **beste herrialde askotan** (8); **beste kasu askotan** (9); **beste leku askotan** (18); **beste toki askotan** (12); **da leku askotan** (7); **dela askotan** (13); **desberdin askotan** (6); **dio askotan** (6); **ditu askotan** (13); **ditut askotan** (6); **dituzte askotan** (11); **du askotan** (45); **dugu askotan** (7); **dut askotan** (15); **dute askotan** (26); **edo askotan** (8); **elkarte askotan** (9); **era askotan** (16); **ere askotan** (53); **ere bai askotan** (6); **eremu askotan** (10); **eskualde askotan** (12); **esparru askotan** (7); **etxe askotan** (24); **europako herrialde askotan** (6); **ez askotan** (7); **ez da askotan** (17); **film askotan** (13); **gai askotan** (11); **gau askotan** (12); **gauza askotan bezala** (7); **gero askotan** (8); **geroztik askotan** (6)

handi askotan (6); **hilabete askotan** (8); **hiri askotan** (15); **hizkera askotan** (7); **hizkuntza askotan** (16); **hori askotan** (21); **horietako askotan** (19); **horrek askotan** (8); **izan da askotan** (13); **izan dira askotan** (6); **izaten da askotan** (24); **izaten dira askotan** (12); **kilometro askotan** (8); **kultura askotan** (6); **lan askotan** (6); **leku askotan ere** (6); **liburu askotan** (8); **lurralde askotan** (9); **maila askotan** (13); **maiz askotan** (7); **mende askotan** (13); **minutu askotan** (14); **modu askotan** (21); **munduko leku askotan** (9); **nahiz eta askotan** (18); **nazio askotan** (6); **nik askotan** (10); **paraje askotan** (8); **partida askotan** (13); **pasarte askotan** (6); **puntu askotan** (13); **sail askotan** (12); **sektore askotan** (6); **talde askotan** (8); **testu askotan** (6); **une askotan** (47); **urte askotan zehar** (7); **zahar askotan** (7); **zen askotan** (24); **zentzu askotan** (14); **zion askotan** (8); **ziren askotan** (18); **zituen askotan** (6); **zitzaion askotan** (6); **zuen askotan** (26)

---

askotara *izlag* modu desberdinetan.

Neurritasun horrek, izan ere, biltzen gaitu eta bateratzen, **askotara** sakabanatu baikinen. Imanol Unzurrunzaga

---

askotariko 1 *izlag/izond* era askotakoa dena.

Askotariko animalia-itxurak era daitezke, hainbat mailatako alde nabarmenak sorraraziz beren artean, besterik gabe eragiketa batzuk eginik gene erregulatzaileen sare zabalean. Juan Garzia

Saltoki itzelak, **askotariko** salgaiz gainezka, amaierarik gabe hedatzen dira kaietan barrena, kilometro askotan zehar. Jon Muñoz

Kontaezinak dira oihartzunak, infinituak ia, oroimenaren zurubiko mailetan eta denboraren mazaletan gora eta behera ibili dabiltzanak, hizkuntza **askotariko** eremuetan atzera eta aurrera egiten dutenak. Anjel Lertxundi

XX. mendeko filosofiak **askotariko** erantzunak eman dizkie Kanten ondorengo sistema idealistek sortutako bideei. Askoren artean

Eta, batez ere, baziren, ordura arteko bilduma zabalean, **askotariko** mutanteak; besteak beste, enbrioiaren garapena nahastua zuten batzuk. Juan Garzia

Irudimen trebea eta buruargitasun zorrotza erakustera, alegia, bere burua hotzetik, gosetik, gaixotasunetik eta **askotariko** arriskuetatik babestuko bazuen. Juan Garzia

· Nahaste gaitz horrek ondorio **askotarikoak** eta sakonak ekarri zituen. Isabel Arrigain

Desberdintasun genetiko **askotarikoak**, banako bakoitzaren ADNa besteenekin erkatzeak agerian jarriak. Juan Garzia

Arlo batean edo bestean posible denari muga ipintzen diote, sarritan, dabiltzan uste eta iritzi **askotarikoek**, garai jakin batean kultura baten ezaugarri diren sinesmen, ezaguera eta jarreren sare zabal horrek. Juan Garzia

Bertsoaren baitako elementu **askotarikoen** elkarrekiko lotura frogatzeko, ez dago adibide hoberik. Andoni Egaña

Hau argi dagoenez gero, bistan da lehen gorputzei ez zaiela hutsune sakonean zehar inolako atsedenik eman, baizik, mugimendu etengabez eta **askotarikoz** astindurik, batzuk talkaren ondorioz distantzia handietaraino punpatzen direla, beste batzuek, ordea, leku txikian jasaten dutela kolpea. Xabier Amuriza

Bazen eolipila bat, Sezesio deritzon aro--estilokoa, Heronen iturri bat, eta aurrerabideak bazter utzitako tramankulu bitxi **askotarikozko** fauna oso bat, zeinak eskolako azalpenetarako erabiltzen baitziren aspaldiko belaunaldietatik: [...]. Juan Garzia

Azken batean errealitate bat -errealitate **askotarikoa**, gainera- deskribatzeko ekonomian ez ezik beste alorretan ere erabiltzen diren termino eta eufemismoak. Iñaki Heras

· Askatasuna **askotarikoa** baita. Markos Zapiain

Desioak **askotarikoak** dira, aldakorrak, eta indar sozial guztiek etengabe dute eragina horiengan. Iñaki Heras

Horiek horrela, filosofoek mahairatu dituzten politikari buruzko galderak ere asko eta **askotarikoak** izan dira: [...]. Askoren artean

Horietako elementu bat aldatzen bada, ondorioak **askotarikoak** izan daitezke, baina gertaerak, berez, ez du eraginik hitzen gainean. Isabel Arrigain

Hona hemen, bada, egintza ezberdinak, aniztasunik gabeko ahalmen bakun bakarretik isuriak, eta egintza horiek **askotarikoak** ditugu, arrazoitzeko ahalmenari darizkion antze horien kopurua infinitua baita. Xabier Kintana

Badituzte savantek beste trebetasun txikiago batzuk, asko eta **askotarikoak**, Down eta Tredgold medikuek, "adimen eskaseko"entzako instituzio batetik bestera ibiliak, sarritan deskribatu izan dituztenak. Xabier Olarra

2 *asko eta askotariko*

Eta hemen ere badira iritzi **asko eta askotarikoak**. Askoren artean

Badituzte savantek beste trebetasun txikiago batzuk, **asko eta askotarikoak**, Down eta Tredgold medikuek, "adimen eskaseko"entzako instituzio batetik bestera ibiliak, sarritan deskribatu izan dituztenak. Xabier Olarra

Kausak " **asko eta askotarikoak** » direla dio, baina elkarren artean harreman estua dutela askok Berria - Gaiak

Autore honen arabera, erretorika klasikoan, **asko eta askotarikoak** dira oroimenarekin loturiko alderdiak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hizkuntza baten gramatika sistema konplexua da, bere atalen artean lotura **asko eta askotarikoak** dituena. Itziar Laka

Arrazoia, hara: mutante **asko eta askotarikoak** pilatuak ziren berrogeita hamar urtean, eta haietariko zenbaitek argi eta garbi nahasten zuten animaliaren erabidea. Juan Garzia

Hauts **asko eta askotarikoak**, mota askotxotakoak doaz atmosfera aldera: batzuk jarduera industrialekoak, besteok nekazaritza jardueratik doazenak. Pello Zabala

Mota bitxi **asko eta askotarikoak** daude. Antton Olano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alde askotariko** (4); **askotariko alderdiez osatutako** (4); **askotariko artikuluak** (3); **askotariko bat** (6); **askotariko eragileek** (3); **askotariko eskaintza** (3); **askotariko espainiaren** (3); **askotariko gizarte bat** (3); **askotariko gobernu** (3); **askotariko iritziak** (5); **askotariko jendea ezagutuko** (3); **askotariko musika** (3); **askotariko obrak** (3); **baitan askotariko** (4); **dituen askotariko** (3); **era askotariko** (4); **ere askotariko** (4); **kolore askotariko** (6); **kosovon askotariko gizarte** (3); **nazio askotariko** (9)

---

askotarikotasun *iz* askotarikoa denaren nolakotasuna.

Aintzat hartu behar da **askotarikotasun** kulturala solidaritatez burutu behar duen globalizazioan, eta horren barruan sartzen da egoerarik txarrenean bizi den eta gure geurea den laugarren mundua. Berria - Euskal Herria

Objektuen, enuntziatuen, kontzeptuen, aukeraketen itxurazko **askotarikotasun** murriztezinaren ondotik jokoan jarri denean modu nahikoa arriskutsuan elementuen masa bat kopuruz gutxiago izango ez zirenak ezta gutxiago sakabanatuak ere, baina elkarren artean heterogeneoak izango zirenak? Xabier Arregi

---

askotasun *(ETCn **72** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ugaritasun** agertzen da) iz* asko edo askotakoa denaren nolakotasuna.

Judizioen funtzio logikoak oro har, hots, batasuna eta **askotasuna**, baieztapena eta ukapena, subjektua eta predikatua, ezin dira definitu zirkulu bat egin gabe, zeren definizioa bera judizio bat baita, eta beraz, funtzio horiek barnebildu beharko bailituzke. Ibon Uribarri

Kantitatearen kategoriak ezartzen ditu bere oinarrian, hots, batasuna, **askotasuna** eta orotasunaren kategoriak. Ibon Uribarri

Horrela, beraz, orotasuna (totalitatea) ez da **askotasuna** batasun gisa kontsideratua baino; murriztapena ukapenarekin lotua dagoen errealitatea besterik ez. Ibon Uribarri

Honi adigai bati oinarri komun gisa dagokion (ez bertan handitasun gisa pentsatzen den) ezaugarrien **askotasun** kualitatiboa dei dakioke. Ibon Uribarri

Jakite zertandunean sar daitezke pentsatzen, igerian, babak egosten edo pianoa jotzen jakitea bezalakoak, eta beste mordo bat, baina ez mordo azkengabe bat, eta hargatik ez dago hemen **askotasunik** eta jakintsutasunik. Iñaki Segurola

· Ezin zitekeen Ferdinand de Saussure indoeuropeistak hizkuntza egoera errealetan gertatzen den dialekto forma **askotasuna** ez jakitea, eta deskribatzen du, bada, nola ezartzen den nolabaiteko batez bestekoa, mintzairak loturiko gizabanakoen artean. Isabel Arrigain

---

askotu, asko(tu), askotzen. da/du *ad* ugaritu.

Hots -gehitzen dut nik hemen-, hizkuntza batzuk gutxitu eta ezereztu, eta beste batzuk -edo "bat"- **askotu** eta gizendu; ideal anarkistatik gero-eta hurbilago, nonbait. Iñaki Segurola

---

askotxo *adlag adkor* asko xamar, ez gutxi. ik **gehitxo**.

Koka dezagun eguzkia 10 graduko altueran: ba, sakabanaketa, piko-pikoan dagoenekoarekin alderatuta, 4-5 bider markatuagoa izanen da; **askotxo** galduko du, beraz.

Pello Zabala

Eskola handikoa da esaera hau: **askotxo** ikusitako amamak edo aittittak asmatua nonbait. Pello Zabala

Penatzen ditu normalean neguak xahar bat baino gehiago, eraman ere bai beste **askotxo**. Pello Zabala

Neguan inortxo ez, baina udaldian, **askotxo**. Pello Zabala

Hirietan laketzen ikasi duten **askotxok** aitortzen dute, hiri-bazterren batean "herri batean bezala" bizitzen asmatu dutela, eta zerbaitegatik izango da. Iñaki Segurola

· Harrezkero, **askotxotan** egin du bere artean halabehar hutsez gertatu ote zen. Xabier Montoia

· Mendietan ere, pinudi **askotxo** daukagu. Pello Zabala

Lurreko gatza gara, eta gorroto diegu banderei, zenbakiei, konpromisoari eta beste gauza **askotxori**. Iñaki Segurola

Bai gauza ederrak ezaupidea, konfiantza, adiskidetasuna; bai, baina gauza eder **askotxok** bezala, zaputza, errea eta ustela oso bertan eta berekin dituztenak. Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **askotxo askotxo egin** (4); **askotxo esatea** (4); **askotxo ziren** (7); **falta askotxo** (3); **jende askotxo** (4); **urte askotxo** (4)

---

askotza *iz* kopuru handia.

Hotz hezea, euria eta argi **askotzarik** ez. Josu Zabaleta

---

askoz ik **asko**.

---

askozaz 1 *adlag* askoz.

Idusek Lantak baino **askozaz** farola gehiago zituen. Unai Elorriaga

Bazekien ni harekin egoteak munduaren ikuskera zabaldu eta mugak hausten zizkiola, ni ikaslea nintzelako eta Antoniok baino **askozaz** jende gehiago ezagutzen nuelako. Aitor Arana

· **Askozaz** hobeto zegoela konturatu nintzen eta ni neu ere halaxe sentitu. Aitor Arana

Pertsonak sugeak baino **askozaz** problematikoagoak direla erabaki zuen Matiasek. Unai Elorriaga

Esan nahi da hilda dauden intsektuak **askozaz** manejableagoak direla. Unai Elorriaga

2 ***askozaz ere*** (-ago atzizkiarekin dagokion izenondoan)

askozaz ere handiagoa baita. Berria - Mundua

Horietan pentsamolde baten puskaño bat islatzen da, izozmendia bailitzan aditzera ematen duena hor badagoela **askozaz ere** sakonagoa den zerbait. Berria - Kultura

Baina ez beldurrik izan, ez baitut, denboraren kontzepzioaz hitzegiteko alegia, Aristotelesen teoria aintzat hartuko, baizik eta **askozaz ere** arinagoa eta atseginagoa gertatuko zaizuen zerbait. Bernardo Atxaga

Lehendik ere pentsatzen nuen amaren sua eta kuleroak gordetzen dituen aitaren etxe horrek zerikusi motza zukeela biziarekin edo bizi-gauzekin, baina orain badakit seguru, eta badakit neronek uste baino **askozaz ere** beltzagoa dela asuntoa. Iñaki Segurola

Istant batzuk lehenago baino **askozaz ere** okerrago zegoela zirudien, bere odolean zebilen alkoholak azken kolpea eman balio bezala. Bernardo Atxaga

Honi erantsi behar zaio kontzeptuak berak ere -"Estatua", "independentzia", "subiranotasuna"- erasopean daudela azken aldi honetan, eta beren edukiak uste genuena baino **askozaz ere** irristagarriagoak direla. Joseba Zulaika

Simulazioaren aldean, lausoagoa da, **askozaz ere**, disimulazioa. Berria - Harian

Ni baino txotxoloagoa zelako, entzun duk eta txaplata esateko moduan ezagun zenez, horixe ni baino txotxoloagoa zela, **askozaz ere**. Joseba Sarrionandia

Edo, hobeki esanda, Patri, inortxok aipatzen ez dituen gauza batzuek gehiago kezkatzen naute, **askozaz ere**. Hasier Etxeberria

Haatik, Amazonas aldeko zoko ezkutu batera betiko joan zelakoa nahikoa kolpe gogorra izan bazen ere, **askozaz ere** kolpe gogorragoa izan zen jakitea burua arras galdurik zebilela. Jon Alonso

Bera baino **askozaz ere** egoera okerragoan ikusten zuen; bera, behintzat, maite zuen jendeak inguratua zegoen. Imanol Zurutuza

Lakoizketak bildutakoak eurenak baino gehiago dira, **askozaz ere**, eta hobeak, gainera. Hasier Etxeberria

· Telebistan hobeto ikusten dira partiduak, zelaian bertan baino **askozaz ere** hobeto. Patxi Iturritegi

-Horrela, **askozaz ere** hobeto -laburbildu zuen Matson jaunak. Mirentxu Larrañaga

Lehen ospitale bat zegoen hemen zikoina gaixotuentzat edo zaurituentzat -esan zigun Abdellahk azotea guztiak baino gorago, **askozaz ere** gorago, hegaldatzen zen bikote bati begira-. Bernardo Atxaga

Arrebak esan didanez, Davidek **askozaz ere** nahiago ditik liburuak. Bernardo Atxaga

Baina **askozaz ere** astiroago, soseguz. Unai Elorriaga

· Lakoizketak bildutakoak eurenak baino gehiago dira, **askozaz ere**, eta hobeak, gainera. Hasier Etxeberria

Zera esan nion bakarrik, nahiago nukeela, **askozaz ere**, xake-partida bat... Joxe Austin Arrieta

3 ***askozaz gehiago*** *(**19** esaldi, **11** liburu eta **2** artikulutan; ETCn **127** agerraldi)* askoz gehiago.

Eta ez ziren **askozaz gehiago** horrelako grina pizten ez zioten mintzagaiak. Karlos Zabala

Baina **askozaz gehiago** ere bada: alegoria bat da, mendebaldeko beste edozein testuk baino zorrotzago laburbiltzen duena fedearen, abertzaletasunaren eta askatasunaren paradoxazko leize gaindiezina. Joseba Zulaika

Eta ama dut ahotan hartzen eta ez aita, zeren ume-kontu hauek amen gauzak izan ohi baitira haste-hastetik aitenak baino **askozaz gehiago**. Iñaki Segurola

---

askozez ik **askozaz**.

---

asku *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi) iz* onddo batzuen esporetan dagoen zelula ugaltzailea.

Hala ere, Ascomycota taldeko espezie batzuk ez dira modu sexualean ugaltzen eta ez dute **asku** edo askosporarik sortzen. ETC-entziklopedia

Jatorri sexuala du, haploidea da eta **asku** izeneko organoan sortzen da. ETC-entziklopedia

Ascomycota filumeko onddoek "**asku**" izeneko zaku itxurako egituretan eratzen dituzte esporak. ETC-entziklopedia

Kasu honetan, meiosia gertatzen da, barnean lau askospora dituen **asku** bat eratzen delarik. ETC-entziklopedia

---

asma 1 *iz* arnasa hartzea oztopatzen duen eritasuna, bronkioen uzkurtze espasmozkoek eragina.

Gurasoetako batek **asma** izatea ere zantzua izan daiteke: ama asmaduna bada, umeak arrisku handiagoa izango du **asma** izateko. Berria - Gaiak

Asmatikoa da eta **asmaren** aurkako botika eman zion bere amak (ama medikua da). Berria - Kirola

Ez bustita zegoelako, edo lotan, edo **asmaren** antzeko hotsa egiten zuelako, irribarretsu zegoelako baizik. Anton Garikano

Asmaz, rinitisaz, eta laringeko minbiziaz, esaterako. Berria - Gaiak

Asmaz gain, gainera, biriketako bestelako gaitzen aurka egiteko ere erabil daiteke tratamendua. Berria - Gaiak

2 ***asma belar*** *iz* tabakoaren familiako landarea, hosto handi zabalak eta lore zuriak dituena; hostoak eta haziak espasmoen kontrako gisa erabiltzen dira *(Datura stramonium).*

Amazonastik etortzen ziren berrien arabera, Mitxoleta burutik zeharo egina omen zegoen, soa infinituan galdu egiten zitzaion, estramonioa edo **asma-belarra** neurriz gain hartu dutenei gertatu ohi zaien bezala. Jon Alonso

---

asmaarazi ik **asmarazi**.

---

asmaberritu *izond* duela gutxi asmatua.

Oraingo iruditeria exotiko taigabe **asmaberrituan**, honenbeste teknika arrotzek eta zibernetikak gure irudimena eta ingurumaria fikzioz enpokatu eta nahastu dutenetik, kasik ez baitu zentzurik, behialako mundu liriko eta patxadako batean bezala, ikusi makusika hasteak. Patziku Perurena

---

asmabide *iz* asmatzeko bidea.

Orain, Babiloniatik eta hango aztura kuttunetatik urruti, nolabaiteko harriduraz gogoratzen ditut loteria eta ilunabarrean estalkien atzetik gordetzen diren gizonek murmurikatzen dituzten **asmabide** birao-gaiztoak. Juan Garzia

On dateke berarekin mintzatzea, horrela ereiniko haziak **asmabide** arriskutsurik sorrraraz baitezake buru maltzurretan. Juan Garzia

---

asmadun *iz* asma duen pertsona.

Gurasoetako batek asma izatea ere zantzua izan daiteke: ama **asmaduna** bada, umeak arrisku handiagoa izango du asma izateko. Berria - Gaiak

---

asmaezin *izond* ezin asmatuzkoa.

Eboluzio **asmaezin** konplexu denaren irudi oso laua -zelula baten sorrerarena baino **asmaezin** zenbat aldiz errazagoa-, baina adibide izan dakigukeena. Jenaro Garate

Etorkizuna, **asmaezina**. Berria - Ekonomia

Egiaz dira **asmaezinak** eta ezkutukoak. Joan Mari Lekuona

-Zure guardek naute atxiki, herritik jalgitzean -aldarrikatu zion neskak, maitalearen bortizkeria **asmaezinak** ikaraturik-. Elena Touyarou

Salek pase markatuak egiten ditu, eta irlandarrek, aldiz, aurrez erabat **asmaezinak** direnak. Berria - Kirola

Pelennor itzaletan murgilduta zegoen, Ibai Handiaren lerro ia **asmaezinean** galduta. Agustin Otsoa

Eta, noski, zuela gutxi **asmaezin** zitzaiokeen denboraren harilka berria ez zuen inorenarekin parekatzen. Itxaro Borda

"Guztia" zer arraio ote zen, gero eta **asmaezinagoa** bilakatuagatik ere. Aingeru Epaltza

---

asmagaitz *izond* asmatzen zaila dena, ia ezin asmatuzkoa.

Luzaroan pentsatu izan zen liburu **asmagaitz** horiek iraganeko edo antzinako hizkuntzei zegozkiela. Juan Garzia

Gizona, liburuzain moldegabea, halabeharrak edo demiurgo maltzurrek sortua izan daiteke; unibertsoa, ordea, apal sorta hain dotore hori, hainbeste liburu **asmagaitz**... Juan Garzia

Materia **asmagaitza** azazkalaz nahiz labanatxoaz haztatu, usain egin, ezpainekin sentitu. Juan Garzia

Neskatxa, iz. Sexu desleialeko pertsona gaztea, jokabide **asmagaitzerako** eta krimenerainoko eromena sor lezaketen ikuspegietarako jaidura duena. Xabier Olarra

---

asmagarri *adlag* asmatzeko modukoa.

Bonbilla baterantz begiratu eta, behin begiak itxita, irudia gogoan gori markatuta geratzen den bezala gogoratu du: gizona, odola dariola, lurrean etzanda, azken hatsa oraindik **asmagarri** gela inguruan. Sonia Gonzalez

---

asmagin *iz* asmatzailea. ik **igarle**, **azti**.

Interesatzen zitzaizkidan galderei, esan bezala hasieratik etenda uzten zituen haiei, erantzuna ematen zienean ez zuen nire jakin-minik asetzen; izan ere, igarle, azti, **asmagin** edo gauza ezkutuak asmatzeko gaitasuna omen duen jende horren joera baitzuen, adierazpen orokor, zehaztugabe eta lausoak egitekoa, gauza bat eta bere aurkakoa baieztatzeko balio zutenak. Ramon Saizarbitoria

---

asmakari **1** *iz* asmatu behar den zera.

Sabako erregina, Salomonek Jaunaren osperako nolako izena zuen aditurik, **asmakariak** ipiniz probatzera etorri zitzaion. Elizen arteko biblia

Azken **asmakari** hau Tamusi aurkezterakoan, Teuthek idazketak "egiptoarrak jakintsuagoak eta oroimentsuagoak" bihurtuko zituela adierazi zion, "oroimenaren eta jakinduriaren sendagarria bailitzan asmatu baita". J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gizon gazte batek buelta asko eman zizkion **asmakariari**, Anshelek bere emazte maitea Avigdorrekin kartetan, edo Hanukkah-ko dreidel jokoan, galdu zuelako ondorioa atera zuen arte. Koro Navarro

2 asmaturiko gauza edo tresna.

Telefono, iz. Deabruaren **asmakari** bat, atsegin ez dugun pertsona urrun edukitzearen abantailetako batzuk ezeztatzen dituena. Xabier Olarra

Ferminek bere etxera eraman eta egiten ari zen **asmakariak** erakutsi zizkion, asmatzailea baitzen; jostailuzko tranbia elektriko bat eta beste trepeta elektriko pila bat ari zen egiten. Josu Zabaleta

Bere **asmakariaren** abantailak azaldu eta sari-eske joan omen zitzaion berehala Thamus bere nagusiari. Joxerra Garzia

Asmakari mekaniko horiek guztiak -telefonoa, elektrizatea, altzairuzko zubiak, zaldigabeko ibilgailuak- ez dira alferrikakoak izango. Lopez de Arana

Dutxa ere egundoko **asmakaria** baitzen Mikelentzat, umetan bainatzea gorroto izan zuen ume handi harentzat. Kasurik hoberenean, tokiko eragileak jabetzen dira atzerritar teknikez, baina oso gutxitan sortzen dira bertan **asmakari** berriak. Unai Iturriaga

Asmakari mekaniko horiek guztiak -telefonoa, elektrizatea, altzairuzko zubiak, zaldigabeko ibilgailuak- ez dira alferrikakoak izango. Lopez de Arana

Literatura **asmakari** bat da beste bizitza batzuk bizitzeko, bizitza paraleloak, alternatiboak, irudimentsuagoak, alaiagoak edo tragikoagoak. Ana Urkiza

Honela, adibidez, irudimenaz pentsa daiteke zaldi-burua eta hegoak dituen gizabanako bat, bai eta antzeko beste batzuk ere; eta horri gezurrezko **asmakaria** esaten zaio, inon horren araberako izakirik bat ere ez dagoelako. Xabier Kintana

---

asmakeria *iz* funtsik gabeko asmaketa.

P.ko buruak, aldiz, bota du betikoa, ETA-rekin ados dela Ibarretxe eta holako **asmakeriak**. Herria

Kapitulu honen aurreko zatian hartutako jarrerak erasoak izan ditzake, bai erlijio guztiak **asmakeria** eta **asmakeriatzat** hartzen dituztenen aldetik, bai elizak, berauek aitortzen duten fedearekiko, erabat eta beti ezduintzat jotzen dituztenen aldetik. Iñaki Mendiguren

Nekez sinistuko dugu egia neska itsusi baten ahotik, eta erraz asko irentsiko edozer **asmakeria** neska eder batek esan badu. Matías Múgica

Galdosek kontatutakoa ez zen batere segurua, bestalde; **asmakeria** izan zitekeen, edo, okerrago, gezur hutsa. Xabier Montoia

Zein ziurrago ez da helburua bilatzea eliza legeen bide handitik, ezen ez **asmakeria** berrien xendra bide berrietarik, hauek xede onez asmaturik ere. Piarres Xarriton

Asmakeria ero bat pintatu nuen marrazkiko emakumearen gerriaren azpian, eta "Pussie Edwards" idatzi nuen letra txikiz orriaren oinean. Koro Navarro

Oteizak ezin du euskaldunok dugun hiztunen arteko itunetik abiatu, ezin dio **asmakeria** garbizalearen neologismo-eitea nabarmendu txadona hitzari, neskatxa betikoak tokia egin behar dio bere neskautsa aprioristikoari. Anjel Lertxundi

Bertutea **asmakeria** hutsa da, eta hura adoratzeak sakrifizio gogorrak eskatzen ditu, berezko joeren aurkako borroka etengabeak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zergatik eta nolatan asmatu dute hori gure asabok? **Asmakeria** hutsa, bati hala kaskotik irten zitzaiolako? Ba, ez. Pello Zabala

Damek, gobernadoraren emazteari zegokionean beren eginkizuna betetakoan, gizonezkoen taldeari eraso zioten, haien iritzia beren alderdira bildu nahirik eta esanez arima hilak **asmakeria** hutsa zirela eta susmoak uxatzeko eta neska eragozpenik gabe bahitzeko erabiltzen zituela Txitxikovek. Jose Morales

Jakitea eta zientzia azkenetan daudenean, orduan eta ez lehenago, zentzu komunera jotzea, azken denbora hauetako **asmakeria** sotila besterik ez da. Patziku Perurena

Ez zuen merezi alferrikako **asmakeriekin** hastea, bazekien. Fernando Morillo

Ernest Hemingwayren landetxe dotore hartan espien ipuinak eta kontuak maiz suertatzen ei ziren eta, haiek denak ere ez ziren **asmakeriak** izango. Edorta Jimenez

Alabaina, hainbeste dira ñabardurak, non datuen faltak interpretaziorako bidea zabaltzen baitu, eta zenbaitetan baita **asmakerietarako** bidea ere. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asmakeria hutsa** (7)

---

asmaketa *iz* asmatzea, bururatzea, buruan edo irudimenean sortzea.

Aurpegi beldurgarria erdikustera irits gaitezkeelako **asmaketa** horretan. Iñaki Iñurrieta

Jardute diskurtsiboaren arlo berean sartzen dela -ezberdintasunak, **asmaketak**, berritasunak edo desbideraketak baino ez gehiago eta ez gutxiago"-. Xabier Arregi

Ez bilatzea lehen hastapen orokor batean enuntziazio-erregulartasunen edo banakoen **asmaketen** legea. Xabier Arregi

Hala ere, garai guztietan eta lurralde guztietan, zibilizatu gabeetan salbu, ez da horrenbesteko **asmaketa** lan handi eta maratzik egin, nola egin den uraren ordezko edariak bilatzen. Xabier Olarra

Erradomantikari, iz. **Asmaketa**-makilatxoa erabiltzen duena metal baliotsuak ergelen patriketan bilatzeko. Xabier Olarra

Hitz **asmaketa** hori hitzekin jolasteko modua bada ere, ez diogu bidea emango gure lantxo honetan. Iñaki Arranz

---

asmaketan *adlag* asmatzen

Eta, hala ere, Berrogeita hemeretzigarren kaleko zubitik hiri barnera sartzean, une batzuetan zerbait nabaritu zuen -argi bat zubi gainean, adibidez-; ez, ordea, **asmaketan**, oso zehatz ikusiz baizik. Xabier Olarra

Inportantea da delitu nabarmenak zigorrik gabe ez uztea, baina alferrikoa da ilunpean ezkutatuta geratu den delitua nork egin duen **asmaketan** jardutea. Juan Martin Elexpuru

Ez zen **asmaketan** ari; hainbat urte lehenago berari tolestuta eman zioten zerbait berdindu nahian besterik ez zen ari; berak ikusitako zerbait. Anton Garikano

---

asmakizun 1 *iz* asmatzea; asmatutako gauza, asmakaria.

-Honen testigantzarekin badakigu, behintzat, Ostolazarena ez dela **asmakizun** bat. Migel Angel Mintegi

Erregearen emazteak hala eskaturik, errukitu eta bizia barkatu zion, baldin eta **asmakizun** baten erantzunari igartzen bazion: zein da emakumeek beste guztien gainetik nahiago duten gauza. Pako Aristi

Eginbehar tontoa, zeren, istorioa **asmakizuna** bazen, notarioaren aurrean kontatzeak ez baitzuen egia bihurtuko. Ramon Saizarbitoria

Asmakizuna gai ilunak argitzea da, eta adimen biziaren bitartez aurkitutako gauza berrien arrazoia. Santiago Iruretagoiena

Horregatik erosi zion **asmakizuna** Lázló-ri, patentea enpresak eduki eta inoiz ez erabiltzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Italia faxistan, Mussoliniren **asmakizuna** izan zen Fiat etxeko auto txikiari topolino (sagutxoa) deitzea. Iñigo Aranbarri

Bi anaien ekarpena **asmakizunaren** patentea besterik ez zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Uste dute horrelako irudiak sortzen ahal ez ditugun gauzen ideiak ez direla ideiak, **asmakizunak** baizik, osatzen ditugunak gure nahimenaren nahikara, alegia. Piarres Xarriton

Bertze zer horiek, berriz... horiek jendearen **asmakizunak** dira eta atso zaharren erran-merranak. Jon Muñoz

Gaur erakutsiko dizuet nik zuei ezen horiek guztiak gezurrak direla eta zuen **asmakizunak**...! Joan Mari Irigoien

Azkeneko urte horietan etorri zaizkigu, Jugoslaviako gerra zikinarekin batera, **asmakizunak** bata bestearen ondotik: satelite bidezko telefonoa, ahotsa mekanikoki ezagutzea, txartel "inteligentziadunak", giza genomaren mapa, supereroaletasuna, auto ez kutsagarriak, mikroingeniaritza, animalia eta landareen genetika, eta abar, mendeak bere 100 urteak jasan zituen arte. Pello Salaburu

Beroaren laguntza emateko prestatuta, berriz, eguzkiaren indarrak eta suaren **asmakizunak** egingo dute bizia seguruagoa. Santiago Iruretagoiena

Zuk ba omen dakizu honelako **asmakizunak** igartzen eta gauza korapilatsuak erabakitzen. Elizen arteko biblia

Jacquesek probabiliteak sortu zituen liburua idatzi zinan: Ars conjectandi: aierua egiteko artea, **asmakizunaren** artea. Jon Muñoz

Tximino bat ere badakar berarekin; horra, tximino hori bezalakorik ez da sekula tximino artean ikusi, ezta gizonen **asmakizunetan** sortu ere. Patxi Ezkiaga

Asmatzaile batek bere **asmakizunetan** irauten du hil ostean, arkitekto batek bere eraikuntzetan, jenderik gehienak ez du monumenturik edo lorpen iraunkorrik uzten alde egin ostean. Oskar Arana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Klitoria, plazer emaile paregabea, naturaren **asmakizun** zoragarria, emakumeen plazeraren gunea. Luis Elberdin

- **Asmakizun** handia litzateke mintzaira, hain baldarrak ez bagina ideiak hitzetara moldatzen! Josu Zabaleta

Zenbaki nulua asmatzea izan zen hori: indiarren **asmakizun** handia! Jon Muñoz

Mundu honetan daudekeen paradisu guztiak **asmakizun** hutsak baizik ez direla eta gezur hutsak. Joan Mari Irigoien

Zinea **asmakizun** melankolikoa / iruditzen zait / Candilejas ikusi nuenetik. Pako Aristi

Zuhaitzetara igotzeko, lubakien gainetik jauzi egiteko eta ezein **asmakizun** mekanikok egin ezin dituen maniobra asko egiteko aukera ematen dio giza animaliari propultsio-sistemak, gurpilen eta beldar-kateen zenbait abantaila baliatuz. Irene Aldasoro

Jendea hiltzeko ahalik eta **asmakizun** zientifiko aurreratuen eta biribilenak erabiliz, ahalik eta kalterik handiena ekarriz, ahalik eta hondamendirik itsusienak sorraraziz. Pello Salaburu

Bigarrena da, infernuko sutik bezala begiratu behar garela, 19. artikuluan aipatzen ditudan **asmakizun** oker eta madarikatuetarik, asmatuz Jainko pertsonen sortzea gorputzetik datorrela, izpiritu soiletik heldu delarik osoki. Piarres Xarriton

Arkimedesek **asmakizun** miresgarri asko eta ugariak egin zituen, baina guztien artetik orain azalduko dudan honek erakusten du trebetasunik handiena. Santiago Iruretagoiena

Azkenik, berak sortu zuen, nagusien begi onez noski, inork asma lezakeen **asmakizunik** barregarriena eta itxuragabeena. Patxi Ezkiaga

Ez da lekuz kanpo egongo hemen Kersifronoren **asmakizun** ingeniosoari buruz hitz egitea. Santiago Iruretagoiena

Monsieur Guillotinek, ordea, ez zekien bera ere **asmakizun** heriotza-leungarria bere buruaz ordaintzeko zorian egongo zela, bera ere gutxiagatik libratuko zela altzairuaren zorrotza lepoan sentitzetik. Felipe Juaristi

Historia hori guztia bankarien **asmakizun** doilorra dun, porrot ez egiteko! Jon Muñoz

Berehala konturatuko gara lehen-lehenengo **asmakizuna** premiaren eraginez sortu zela: jantziaz ari naiz. Santiago Iruretagoiena

Gizadiaren **asmakizunik** garrantzitsuenetatik bat da hori, inork ukatuko ez duenez. Jon Muñoz

Kristauek arabiarren bitartez ezagutu zituztenez zifrak, "arabiar zifrak" deitu zieten, eta zeroa arabiar **asmakizun** bat zela esan zuten. Jon Muñoz

Sekulako **asmakizuna** izan zen ikastola, eta denborarekin, ikastolatik unibertsitateraino iritsi da euskara. Koldo Zuazo

3 (hitz elkartuetan)

Asmatu esan dut, anitzetan, **asmakizun** itxura baitute. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asmakizun bat zela** (3); **asmakizun berriak** (4); **asmakizun handia** (5); **asmakizun hori** (4); **asmakizun hutsa** (5); **asmakizun ona** (4)
> **asmakizuna da** (8); **asmakizuna dela** (4); **asmakizuna izan zen** (5)
> **asmakizunak dira** (4); **bere asmakizunak** (3)
> **asmakizunetan gal** (3)

---

asmakuntza *iz* asmaketa.

Ez zaizkit **asmakuntzak** interesatzen, baizik eta jendeak nola hartzen zituen. Pako Aristi

Argazkiaren **asmakuntzaren** eta zinemaren **asmakuntzaren** arteko harremanen gaia. Josu Zabaleta

Hegazkina eta irratia bezalako mendebaldar **asmakuntzak** salbazioaren predikazio-lanerako aprobetxatu ahal izango zuela, beste garai batean txinatarrek asmaturiko inprentaz baliatu zen bezalaxe. Iñaki Mendiguren

Asmatzaile batek bere **asmakizunetan** irauten du hil ostean, arkitekto batek bere eraikuntzetan, jenderik gehienak ez du monumenturik edo lorpen iraunkorrik uzten alde egin ostean. Oskar Arana

Gero diote **asmakuntza** berriak txarrak direla, gizonari lehen zeukan lekua kentzen diotela langabezia sortuz, bai zera! Pako Aristi

Diru-billeteen **asmakuntza** ez zen benetan eraginkorra izan paperaren eta inprimaketaren bi **asmakuntza** sinikoekin elkartu zen arte. Iñaki Mendiguren

---

asmalan *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1) iz* sormen lana.

Ez ginen luze **asmalanetan** aritu, berez argitu baitzen esanahia. ETC-literatura, saiakera

---

asmalari *iz* asmatzailea.

Energiaren kontserbazioaren legeak ezinezkotzat jotzen ditu, baina horrek ez ditu inoiz gogogabetu atzetik dabilzkion hamaika **asmalariak**. Fernando Morillo

---

asmamen *iz* asmatzeko ahalmena. ik **sormen**.

Ez al daude XVIII. mendeko **asmamenezko** aberastasunean arkeologiaren koadro estuan sartzen ez diren beste zenbait ideia? ". Xabier Arregi

Hain ere ene **asmamenetik** harago, ezen, neure baitan askotariko figurak irudikaturik, labur geratzen bainintzen harenen aldean. Juan Garzia

Gizonen **asmamenak** ez du mugarik! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hartara, batzuetan **asmamenaz** baliatu beharra izan dugu eta besteetan ezinaren aurrean makurtzea besterik ez dugu izan, itzulpena taxuz egitekotan. Lopez de Arana

Oraindik ere bekatu eginez jarraitzen dute: beren zilarrez, jainko-irudiak moldatzen dituzte beren **asmamenaren** arabera, artisau-lan hutsa guztia. Baina sakrifizioak eskaini behar omen zaizkie. Gizakiak zekorrei musuka! Elizen arteko biblia

Hala ere, izugarri alaia eta atsegina zen beti, eta gutxik bezalako umorea eta **asmamena** zeuzkan, gaur egun Madrilgo irrati-kate batean ustiatzen dituenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta ibiltzen zen bezala ibilita, mantso, herren; aurpegi gorrixka harekin, etengabe hunkituta balego bezala; zintzotasun argia zerion begirada hark irudimen bizia erakusten zuen, eta, bere bakardadearekin, musikak elkarrizketa egiten zuen **asmamenaren** inspirazioarekin. Askoren artean

Eta saltzaile andreen **asmamena** aske oldartzen zen, gertaerarik lazgarrienak amesten zituzten, kontrabandista talde bat Parisen erdi-erdian, edo elkarte zabal bat, merkatuko lapurreta guztiak zentralizatzen zituena. Karlos Zabala

Eta etsipenak **asmamena** zorrozten du. Jon Muñoz

Sakonegia da izadiaren eta antzelanaren arteko leizea, **asmamen** handieneko ingeniariarentzat ere. Irene Aldasoro

Plan bikaina zen, nik neuk aitortzen dut hala, benetako tipo bihurrien plana, eta **asmamen** hain goraren aurrean txapela erantzi baino ezin du egin batek. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 1 aldiz agertzen direnak)**
> **asmamen bizia ikustean** (1); **asmamen edo gogo** (1); **asmamen hain goraren** (1); **asmamen handia behar** (1); **asmamen handieneko ingeniariarentzat** (1); **asmamen handirik** (1); **asmamen ikaragarria izan** (1); **asmamen motak** (1); **asmamen soila baita** (1); **asmamen txinpart oro** (1); **lagunaren asmamen bizia** (1); **zer asmamen** (1)
> **adimenean asmamena** (1); **artegintzarako asmamena** (1); **asmamena aske oldartzen** (1); **asmamena erabili behar** (1); **asmamena eta nahimenean** (1); **asmamena eta sormena** (1); **asmamena gainditzen zitzaion** (1); **asmamena laguntzen badu** (1); **batzuetan asmamena erabili** (1); **beraien asmamena ere** (1); **errusiarron asmamena** (1); **etsipenak asmamena zorrozten** (1); **ezintasun objetiboari asmamena** (1); **gure asmamena zorrozteko** (1); **haurraren asmamena** (1); **norberaren asmamena laguntzen** (1); **objetiboari asmamena gainditzen** (1); **saltzaile andreen asmamena** (1); **traidoreagoa da asmamena** (1); **trebatua nuen asmamena** (1); **umorea eta asmamena** (1); **zeren gure asmamena** (1); **zuk artegintzarako asmamena** (1)
> **asmamenak bezala** (1); **asmamenak ez du** (1); **asmamenak gauzak edertzen** (1); **asmamenak hainbesterako ematen** (1); **asmamenak lasterketak egiten** (1); **gizonen asmamenak** (1); **irudimenak eta asmamenak** (1); **zilegi da asmamenak** (1)
> **asmamenaren alorra** (1); **asmamenaren arragoan goritutakoa** (1); **asmamenaren eremuak zabaltzen** (1); **asmamenaren inertziak eramanik** (1); **asmamenaren kate luzea** (1); **asmamenaren lasterketan** (1); **asmamenaren zorroztasunari emanak** (1); **beren asmamenaren arabera** (1); **hizkuntzaren eta asmamenaren** (1); **nire asmamenaren apeta** (1); **zuen asmamenaren inspirazioarekin** (1)
> **asmamenari egotzi beharrekoak** (1)
> **asmamenaz baliatu beharra** (1); **asmamenaz itzuli nintzen** (1); **asmoz eta asmamenaz** (1); **literatur asmamenaz gain** (1)
> **asmamenean garratza** (1); **industri asmamenean** (1)

ene asmamenetik harago (1)
ametsez eta asmamenez (1); **asmamenez egiten die** (1)
asmamenezko aberastasun handiagoa (1); **asmamenezko aberastasunean arkeologiaren** (1)

---

asmarazi *(orobat **asmaarazi**)* , asmaraz, asmarazten du *ad* asmatzera behartu.

Sortu zion ahalke gorritasunak haren hitzen zentzua **asmarazi** zidan. Jon Muñoz

Kristoren beso mehe eta luzeek, gorputz hilaren pisuak itzetatik ateratzekotan balire bezala, Kurutzefikatuaren hauskortasuna gehitzen dute: liburuak erakutsi eta **asmarazi** edertasunaz satifatu beharko dut. Piarres Aintziart

Seinaleak beste mintza molde batzu dira; solasari indar emaiten diote **asmarazten** dutenaren bidez, aldi berean adiera bat baino gehiago eskainiz. Herria

Apezari mintzatzen ari zitzaion arren, emazteak mutikoaren soan abisu antzeko zerbait hauteman zuen, **asmarazten** ziona sekulan berak bazekien zerbait nahitara isilpean uzten baldin bazuen, ezbehar zerbait gertatuko zitzaiola. Elena Touyarou

Basajaun etorri da ikustera, eta lortu duela jabetu denean, zerra izurratzeko zer asmatuko eta, zerraren hortz bat alde batera okertu zion eta bestea beste aldera, erabat estropeatu ziolakoan, baina entrama galanta eman zion eta, indarrez eta abilidadez, trontza **asmarazi** horrela. Pello Zabala

---

asmatiko **1** *izond* asma duena.

Asmatikoa da eta asmaren aurkako botika eman zion bere amak (ama medikua da). Berria - Kirola

Asmatikoa izaki, beti pentsatu izan dut noizbait arnasa hartzeko arazoak izan ditugunok, halako komunitate ofizioso bat osatzen dugula, ahulen legio bat bere ahuldadearen eta ingurukoen ahuldadearen kontzientzia duena, eta elkar ulertzeko badugula biriketako estuasunak ematen duen elkartasun eta sentikortasun komun bat. Harkaitz Cano

-Kij, kij, kij! -egin zuen ohiko barre **asmatiko** hura-. Juan Kruz Igerabide

Bere burua bota larruzko besaulkira -bezeroentzako zena eta letradunaren mahai ondoan zegoena-, hasperen **asmatiko** bat egin, eta billete pare bat astindu zion gizonari. Anton Garikano

Irriz hasi zen, irri **asmatikoa**. Ramuntxo Etxeberri

Ez zituen pisu neurketa haiek osasun kontuengatik burutzen, nahiz eta jakin bazekien argalduz gero ez zitzaiola, maiz gertatu bezala, pittin bat **asmatikoa** zelako, arnasa desneurrian larrituko. Bernardo Atxaga

Marrok barre egiten zion sisi-basaka, zantzo **asmatiko** haiekin. Juan Kruz Igerabide

-Kij, kij, kij! -egin zuen ohiko barre **asmatiko** hura-. Juan Kruz Igerabide

Ramon kazetari **asmatikoak** horretan moztu zuen elkarrizketa. Ramuntxo Etxeberri

Isiltasuna gelan, zakurraren hatsa ere aditzen zen, **asmatiko** -arnasa. Fernando Rey

"Horrek ez dio hazten utziko", iragartzen zuten Montmartreko pitonisa **asmatikoek**, Lepic kaleko maldan harekin topo egitean. Jon Muñoz

2 irud/hed

Hogei urteko langabezia masiboa, hamabost urtean hazkunde apala, hamar urtean eros ahalmen **asmatikoa**, 1981etik zazpi txandakatze politiko..., nola aurpegiratuko diegu ozen kritikatzea gurasoek euren buruan baino ez dutela pentsatzen?". Berria - Ekonomia

---

asmatitz *iz* asmaturiko hitza.

Asmatitza hitz berria sortu dugunean, euskal hitz osoa den neurtitza izan dugu gogoan, baina neurtitz hori OIHENARTek sortu zuen (neurthitz), ilhartitz sortu zuen bezalaxe, atsotitz jatorraren ildotik. Iñaki Arranz

Bi hitzen elkarketak sortzen du **asmatitza**, izenak berak erakusten duenez: asmatu hitza=**asmatitza**. Iñaki Arranz

Hizkiak gehitzeaz edo kentzeaz aparte, hirugarren bide bat ere hartzen dute **asmatitzek**: hizki bat (edo gehiago) aldatzea. Iñaki Arranz

---

asmatu, asma(tu), asmatzen *(ETCn **63.691** agerraldi)* **1** du *ad* bururatu; buruan, irudimenean sortu; sortu; igarri; modua aurkitu; usnatu.

Azken batean, euskararen izaerarekin egoki zetorren idazkera **asmatzea** zen helburua, itsu-itsuan frantsesarena jarraitu beharrean. Koldo Zuazo

1.12 Behin esana betiko esana eta etzana gelditzea ez zuen gutako inork **asmatu**. Iñaki Segurola

Asmatu egin behar duzu zein koloretakoak ditudan begiak, besterik ez. Javi Cillero

Ezagun zitzaion ahairea hartu, elizan hainbatetan adituetarik bat menturaz, eta bat-batean berak **asmatutako** hitzez apaindu zuen. Itxaro Borda

Bazirudien jadanik bertan zuela heriotza, jende batzuek berarentzat **asmatua** eta haien asmoetan, haien buruan baizik ez zena, eta bertan iraungo zuen, eta ez zuen alde egingo jende haiek harrapatu, bonbak kendu eta espetxe gotor batean sartu arte. Jose Morales

-Gauza xelebreak **asmatzen** dituk, gero! Pello Lizarralde

Sugetzarrak erakusten digu amorosten, pornoak txortan; biziki laguntzen digu kuttuna hobeki maitatzen, Hollywoodeko izar baten antza aurki edo **asma** diezaiogun. Xabier Mendiguren Elizegi

Egin dudan ametsean ni pantaila barruan nengoen eta handik irteteko bide bila nenbilen baina zenbakiak labirinto bat ziren eta ez nuen **asmatzen**. Iñaki Zabaleta

Kuban jaio izan balitz boleroa **asmatuko** zuen. Pako Aristi

Morroi zintzoa dute burgesek Lombroso jauna, berba zientifikoak **asmatzen** ditu gure jardun politikoa eritasun mailara ekartzeko. Koldo Izagirre

Konrad serioa eta lotsatia zen, eta, hamar urte bete zituenerako, **asma** zitekeen nolakoa izango zen heldutasunean. Xabier Olarra

Eta pozik nago bateko pika non duen **asmatu** diodalako. Josu Zabaleta

-Ez, ez, ustea besterik ez da, baina badakizu, hazten ere ari da, eta **asma** ezazu sasoi honetan zer egosten den hauen kaskezurrean! Joxemari Urteaga

Errugabe baten giharreen eta zuntzen indarra nolakoa den jakinda, **asma** daiteke hari delitu jakin baten errudun aitortu eragiteko oinaze maila. Juan Martin Elexpuru

Ezin nuen **asmatu** zer eduki zezakeen barruan. Juan Kruz Igerabide

Zerbaitetarako **asmatu** zituzten biberoiak. Arantxa Iturbe

Zuk **asmatu** beharko duzu printzesa esnaraziko duen ipuina. Felipe Juaristi

Ahoa zabaldu zuen, baina ez zuen **asmatu** ezer esaten eta nik korridorera begiratu nuen, ama baitzetorren sukaldetik kristalezko erretilu bat zekarrela. Anjel Lertxundi

Denboragarrenera, ordea, semea tifusez gaixotu zitzaion honi, eta kanpoan medikurik onenekin ibiliagatik, ezin izan omen zioten **asmatu**. Iñigo Aranbarri

-Bai -erantzun zion besteak-, sartu izan dituk horrela, baina sukaldera joan, eta usain goxoa daukan eltze txikitik jaten dutenak, horiek ez dituk ateratzen, ez ditek ateak zabaltzeko hitzik **asmatzen**. Patxi Zubizarreta

Animalia bati pixontzia eman eta **asmatu** egingo luke erabiltzen! Itziar Otegi

Ezin nuen izen bat **asmatu** harentzat. Bernardo Atxaga

Jolas batzuk **asma** ditzakegu. Jon Arretxe

Deusek ere ez zezakeen errealitatean haiengandik gorde eta aurrerantzean **asmatuko** nituen irudien edo neure gisan berritxuratuko nituen oroitzapenen kontra iharduki. Joxan Elosegi

Ezertan **asmatu** badut, berriz, berari eskaintzen diot: zorra kitatzeko esperantzarik gabe, hala ere. Juan Garzia

Lasterbide bat aurkituko dut, giltzorde bat **asmatuko** dut, ateak bortxatuko ditut. Juan Garzia

Beraz, zerbait beharko zen **asmatu** gizartean legearen indarra salbuespenik gabe bete zedin: Askoren artean

Gauzak argitu ondoren, gazteek elkar ikusten segitzeko modua **asmatu** zuten. Martin Anso

Edgar Allan Poek baino ez luke honelako leku bat **asmatuko** ! Xabier Paya

Zer ez dute **asmatzen** gaixotasunaren iturria bilatzen hasten direnean! J.M. Olaizola "Txiliku"

Gero berriro oheratu nintzen eta laster hasi zitzaidan irudimena bueltaka, uzkia ongien nork goxatuko zidan **asmatu** nahian. Aitor Arana

Asmatzeko daude oraindik bere pentagramak ongien interpretatuko dituzten musika-tresnak. Harkaitz Cano

Gauza bereziren baten susmoa hartu nion, baina ezin nuen **asmatu** zer, eta arrebak ere ez, noski. Josu Zabaleta

- Hirekin **asmatu** dudala uste diat. Paddy Rekalde

Hori dena egiteko, zerbait **asmatu** behar zen aita-amen artean lotura bat egon zedin. Luis Elberdin

Pakistandarrari nekeza zitzaion **asmatzen** begiluzea espainiarra ala italiarra zen. Lutxo Egia

Bainan Inchauspe eta Lasserrek **asmatu** bezala, zazpik dei egin zuten Erromara. Xipri Arbelbide

Fikzio-idazlea naiz ni funtsean; orain, ordea, proba egin nahi dut, ea ezer **asmatu** gabe, gezurrik kontatu gabe, zer edo zer idatz dezakedan. Xabier Mendiguren Elizegi

Guk ez dugu **asmatu** borroka modu hau, baina baliatzea beharrezkoa zela ikusi genuen. Edurne Elizondo

Orain dakidanetik, ezin dut zehaztu zer **asmatu** dudan eta zer den ahanzturaren hautsetatik eskuratu dudana. Anjel Lertxundi

Jolas berria **asmatu** dugu: jendeak gauzak non gorde bilatzen pasatzen du denbora; auzoaren gordelekuak seguruagoa dirudi. Felipe Juaristi

Ez naiz gelditu denetan aurki daitezkeen eleberri erregionalistetan, hala nola baitira, **asmatzen** ditut izenburuak beldurrez norbaiti gaitzi dakion, Etxahunen askazia (sute, intzestu, gudu), edo Amerikanoaren itzultzea (ohointza, bortxatze, hiltze, ezkontza). Aurelia Arkotxa

Ikusten denez, sentsibilitatez egindako itzulpena inondik ere, politikoa, gazteleratik abiatu izanagatik, eroslearen taxura egokitzen **asmatu** duena. Iñigo Aranbarri

Baina kausak beharturik ari naiz **asmatzen** hori guztia. Monika Etxebarria

Fikziozkoa, **asmatutakoa** da noski pasadizoa. Joxerra Garzia

Durrutiren hurrengoa -hasi nintzen **asmatzen** . Inazio Mujika Iraola

Baina etsaiaren sareetara eroriak ziren eta sare haren erdian beha zeukaten lupua nolakoa zen **asmatzetik** urrun zeuden oraino. Eneko Bidegain

-Es-eskerrik... asko - **asmatu** zuen Amaiak esaten, inondik inora espero ez zuen harrera onak modu atseginean inpresionaturik. Aitor Arana

Charly harro samarra da, are gehiago bere iragarpenenen bat betetzen denean; ez da harritzekoa, bestalde: beti ari da antzekoak botatzen, eta, jakina, **asmatzen** du noiz edo noiz. Iban Zaldua

Etxe barruan ezkutatu nintzen eta ugazabaren semeari egingo nizkiokeen torturak **asmatzen** ematen nuen denbora, hura baitzen, nire ustetan, gertatutako hondamendiaren erruduna. Juan Martin Elexpuru

Soinuak aztertzen hasi ginen orduan: bolumena maximora igo, eta hura zer izan zitekeen **asmatzen** saiatu ginen. Iban Zaldua

Ez nuke desanparoa beste era batera definitzen **asmatuko** . Pako Aristi

Eta jolasak **asmatzen** zituen pilotarekin nerbioso zegoenean. Unai Elorriaga

Osaba-izebek ezin izan zuten beste ezer **asmatu** , baina etxetik irten aurretik, osaba Vernonek aparte hartu zuen Harry. Iñaki Mendiguren

Izan ere, ez zekien liburu horrekin **asmatuko** zuen ala ez, eta oraindik ez daki, 76635-Q-ri pasatu zionetik ez direlako berriro elkarrekin egon. Iban Zaldua

2 (era burutua izenondo gisa)

Hiri amestu, utopiko eta **asmatuez** jardun ziren Queipo eta Agut, baina non amaitzen da errealitatea eta non hasi fikzioa? Berria - Kultura

Ipuina argitaratu eta ia mende batera, beste margolari batzuk Balzacen liburuko pertsonaia nagusiarekin, Frenhofer margolari **asmatuarekin** , identifikatu ziren. Berria - Kultura

'Dena ez da zure eskema sinpleetan eta zure sei zazpi berba **asmatuetan** kabitzen,' esan du Arantxak bere nebarekin ernegatuta, 'zure dena arrazionalizatu behar horrekin bederatzitik bat ere ez duzu ulertzenøø.' Joseba Sarrionandia

Gauza **asmatuak** eta, horregatik, egiantzekoak, zeren makina bat aldiz gertatu baitzait halako istorio bat idatzi eta, hilabete pare baten buruan, egiatan errepikatzen dela ikustea. Koldo Biguri

Garamantes: Afrikako bihotzean kokaturiko erresuma **asmatua** . Patxi Ezkiaga

Han ginaudela, eskaini zidan würstel bat jan eta gero, bekatuaren auzora joan behar nuela azaldu nion, portu aldera, txerpolari harekin egotera, akordio bat itxi behar genuela-eta: gehienbat gauza **asmatuak** . Fernando Rey

Gizartea berriz berez dabil identitate **asmatuen** arteko benetako liskarretan galdurik, eta bitan zatitzen ohi da. Markos Zapiain

Hitz bikoitz **asmatuak** Iñaki Arranz

Eta liburu **asmatuek** asmakizun munduan sartzen gintuzten, balizko euskal dermio ahulduan, lastertasuna bihurtuz abiadura, orain arte beharrezkoa izan dena derrigorrezko eginez hemendik aitzinat [...] Pello Salaburu

Hizkuntza gehiagoren ahoskera aztertu ahala, ikur **asmatuetara** ere jo behar izan da. Lourdes Oñederra

Gaur, berekin telefonoz hitz egin dudanean, alai sumatu dut eta, bere etxera nindoala, banekien pista **asmatua** zuela. Xabier Etxabe

Bestea senarrari, Mila, aspaldiko laguna, lagun **asmatua** , tabernan agertu eta arratsalde pasa egiteko gonbitea egin diola, eta segur aski nonbaiten mokadutxoren bat hartzen amaituko dutela, gauera arte ez itxaroteko. Paddy Rekalde

Edo adizki **asmatuetan** : badirudirudi, garete, ez dakizut esaten, deituko dizudazu. Iñaki Arranz

Hortaz, sindikatuen praktika murriztaileek, makinaren oldar hiltzaileari galga jartzeko deseraginkortasun antolatuaren forma bezala **asmatuek** , langileen beste xede baterako balio izan zuten: itxuraz giza eskuetatik ihes egiten ari zen enpleguaren hondarra luzatzeko. Iñaki Mendiguren

Esaera zahar ondo **asmatuez** ari naiz. Pello Zabala

Nobelako Hester Prynneri, berriz, fikzioak -liburuko lehen orrialdean hasi eta azkenekoan bukatzen zen istorio **asmatuak** -. Anjel Lertxundi

3 (adizlagunekin)

Hola-hala **asmatutako** izena da, eta hutsegite batean oinarritua gainera. Josu Zabaleta

Ez dakit zer den ere liburuetan irakurtu eta ametsetan **asmatu** dudan sentimentuz beteriko amodio haragitua. Piarres Aintziart

Atso zahar batzuek asmo txarrez **asmatutako** txutxumutxu guztiak entzuten ibili zara, zu zoritxarreko egiteko. Lopez de Arana

Hire izena nola idatzi dudan ikusirik, aise **asmatuko** duk nor naizen. Jon Muñoz

Globalizazioa aspaldi **asmatu** zen, duela mende asko: liburuen bitartez gauzatzen zen globalizazio hori, eta lasaia zen, pausatua, gutxi batzuena, gaurkoa abiadura handiko globalizazio masiboa den bitartean. Pako Aristi

Ederki **asmatu** huen libre geratuta. Xabier Montoia

Iya-iya zehazki **asmatu** duzu. Txillardegi

4 ***baietz asmatu***

Hori bai, egin galdera bera hemendik bi urtera, **baietz asmatu** erantzuna: "Espainia? Faboritoa, nola ez". Berria - Kirola

-Baietz asmatu zer dagoen jateko: ajoblancoa. Jon Maia

-Itxaron -esan zuen, nire aho aurrean jartzeko eskua luzatuz-; **baietz asmatu** ! Ramon Saizarbitoria

Horrela esanda, nik ere bai, **baietz asmatu** ! Igoal euria egingo du, igoal ez du egingo... a zer nolako iragarpena! Pello Zabala

5 ***bete-betean asmatu***

Bete-betean asmatu zuen Mikel Alonsok atzo, Realak Valentziaren aurka jokatuko duen norgehiagokaz hitz egitean: «Talde gogorra da, sendoa Berria - Kirola

-Bai, **bete-betean asmatu** duzu -esan zion Harryk zakar. Iñaki Mendiguren

Apara egiten du, **bete-betean asmatzen** du Urrozen begi zoliak. Iñigo Aranbarri

- Ala ene errege jauna! **Bete betean asmatu** duzu esan duzun guztian. Elizen arteko biblia

Halpérinen hitzetan igarri duguna **bete-betean asmatzen** du Portalisek. Andres Urrutia

Bete-betean asmatu zuen berlinari aurre hartuta. Karlos Zabala

-Ikusten!, esan nizuen maitagarria eta errukiorra zela zuen aita, ezta ba? - esan zuen Durant andreak, **bete-betean asmatu** dutela jakitean gurasoek erabili ohi duten doinuaz. Mirentxu Larrañaga

Eta horretan, liburua ezezaguna izate horretan, **bete-betean asmatu** zuen. Patxi Altuna

-Bete-betean asmatu duzue! Jon Muñoz

Elkarrizketetan amaren parte-hartzeak **bete-betean asmatzen** du eta Agustinek ondorio hau ateratzen du: ondasun iraunkorrak eta inork ere kendu ezingo dizkionak eskuratzen dituena, ez beste inor, izan daiteke zoriontsu. Imanol Unzurrunzaga

Eta zerbait usaintzen duenean, **bete-betean asmatu**. Anjel Lertxundi

Eta kontua da **bete-betean asmatu** zuela horretan Lyssenkok. Juan Garzia

Bigarren ondorioan izan ezik, beste guztietan **bete-betean asmatu** zuela esan liteke. Txema Ramirez de la Piscina

Eta **bete-betean asmatu** nuen Peter nolakoa zen, nik uste bezalakoxea. Josu Zabaleta

Bete-betean asmatu dudala dirudi. Joxerra Garzia

Fermin, Arantxa, Begoña eta Haritz txikiaz akordatu eta baietz uste izaten zuen, **bete-betean asmatu** zuela. Xabier Montoia

Gure telebistari gagozkionez, nire uste apalean, **bete-betean asmatu** dute aurkezpenaren barruan, tarteka eguraldi nahiz eguratsaren inguruko hainbat kontu ttiki nahiz leziotxoak emateaz. Pello Zabala

Apustua egin eta **bete-betean asmatu** diat. Xabier Paya

6 ***erdi asmatu***, erdi asma(tu), erdi asmatzen *(orobat **erdiasmatu**)* du *ad* erdizka asmatu.

Atzenaldera ordea, zenbait berezitasun **erdiasmatu** onartu zaizkienetik, laineza hartu dute. Patziku Perurena

· *(era burutua izenondo gisa)* Baditu tarteka sartzeko kontakizun kostunbrista batzuk ere, gehien-gehienak datu sotiletatik abiaturiko pasadizo erdi historikoak **erdi asmatuak**. Anjel Lertxundi

Oinaze **erdi asmatu**, negar eta espantu haundi samartu, eta kontu ilun ikaragarrituen gailurrean errukia sortzeko sastakai beltz gisan ere. Patziku Perurena

Hamaika istorio kontatu zizkidan osaba Xabierrek, hainbat eta hainbat **erdi asmatuak** izango ziren, edo exajeratuak. Mikel Hernandez Abaitua

7 *ezetz asmatu*

Ezetz asmatu nor ikusiko dudan kontzertuan, hemen Bilbon? Woody Allen bera! Berria - Kultura

Ezetz asmatu noren kontra jokatu zuen? Abel Barriolaren kontra. Berria - Kirola

- **Ezetz asmatu** nondik natorren -egiten digu oihu, sartuz batera. Josu Zabaleta

Ezetz asmatu nondik hartuta dagoen. Iñaki Iñurrieta

" **Ezetz asmatu** zertan bereizten diren Ellesmoreko txabolan bizi diren poliziak eta bikote arrunt bat?", galdetzen zuen norbaitek. Bernardo Atxaga

Ezetz asmatu ! Xabier Paya

Dena dela, **ezetz asmatu** xake partida ikaragarri hura nork irabazi zuen, atzeratuak ala torturatuak? Markos Zapiain

-Ezetz asmatu ? Juan Garzia

Ezetz asmatu zein den? Fernando Morillo

- **Ezetz asmatu** zer tatuaje egin ninan Dublinen... Paddy Rekalde

-Ezetz asmatu norekin egon nintzen bart? -galdetu zuen Willemek jostari, haur batzuekin tipitakika balebil bezala. Anjel Lertxundi

Pentsa: amets egin diat berealdiko jipoia ematen zidatela, eta **ezetz asmatu** nork! Jose Morales

Handik bi ordura, **ezetz asmatu** nor aurkitu dudan Saint-Lazare geltokiaren aurrean? Xabier Olarra

Besoak uhaletan sartzen zituela behakoa lotu zidan, hori zuen maltzurreriako aierua, **ezetz asmatu** zer ari naizen pentsatzen oraintxe, begietarik galdezka. Koldo Izagirre

Oraintxe bertan, **ezetz asmatu** non ari naizen eskutitz hau idazten? Ba komunean. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezetz asmatu nor dagoen jangelan! Antton Olano

Behin ijito bat joan omen zitzaioan errezeta baten eskean, ez zekiat ze gaitzek jota, eta **ezetz asmatu** ze errezeta egin zion? Xabier Etxabe

Ukuiluaren gainean nengoen, nire irudimen emankorrak bi mila kiloko "isku" bat ikusarazten zidan, saltoka; **ezetz asmatu** zeri heldu nahi zion. Joxean Sagaztizabal

Hizkuntzei dagokionez, zortzi hizkuntza menderatzen omen zituen Aladro jaunak, eta horien artean -**ezetz asmatu** !- J.M. Olaizola "Txiliku"

8 *kea asmatu*

-Ni bezalakoxea da, maleziarik gabea, inozoa gaiztoa baino gehiago, eta aulkia berotzea gehiegi gustatzen zaio **kea asmatzeko**. Itziar Otegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

asmatu ahal (12); **asmatu aurretik** (11); **asmatu baino** (11); **asmatu behar izan** (24); **asmatu beharko** (54); **asmatu beharra** (20); **asmatu ditu** (15); **asmatu du** (81); **asmatu duela** (17); **asmatu duen** (29); **asmatu dugu** (19); **asmatu dut** (27); **asmatu dute** (49); **asmatu dutela** (14); **asmatu duten** (11); **asmatu duzu** (28); **asmatu egin** (115); **asmatu egin behar** (17); **asmatu egiten** (17); **asmatu ez** (52); **asmatu ezin** (14); **asmatu ezinda** (19); **asmatu ezinik** (83); **asmatu genuen** (14); **asmatu izan** (23); **asmatu izana** (12); **asmatu nahi** (20); **asmatu nahian** (27); **asmatu nuen** (67); **asmatu ote** (14); **asmatu zen** (40); **asmatu ziren** (12); **asmatu zituen** (39); **asmatu zituzten** (27); **asmatu zuela** (42); **asmatu zuen** (297); **asmatu zuena** (22); **asmatu zuten** (123); **batek asmatu** (20); **berak asmatu** (27); **berria asmatu** (20); **berriak asmatu** (19); **bete betean asmatu** (89); **betean asmatu** (94); **betean asmatu du** (12); **bukatzen asmatu** (13); **egiten asmatu** (18); **ez asmatu** (13); **ez du asmatu** (16); **ez dugu asmatu** (16); **ez dute asmatu** (15); **ezer asmatu** (16); **ezetz asmatu** (36); **ezin asmatu** (43); **ezin nuen asmatu** (12); **hau asmatu** (19); **hori asmatu** (21); **nik asmatu** (15); **nola asmatu** (25); **nork asmatu** (13); **ongi asmatu** (19); **zer asmatu** (14); **zerbait asmatu** (27)

asmatua izan (13); **asmatua zuen** (13); **berak asmatua** (11)

asmatuko du (18); **asmatuko dute** (11); **asmatuko zuen** (26); **nork asmatuko zuen** (13)

ezin asmaturik (13)

berak asmatutako (14)

---

asmatzaile *iz* zerbait asmatzen duen pertsona.

Asmatzaile batek bere asmakizunetan irauten du hil ostean, arkitekto batek bere eraikuntzetan, jenderik gehienak ez du monumenturik edo lorpen iraunkorrik uzten alde egin ostean. Oskar Arana

Hori entzunda, odola irakiten jarri zitzaidan, ohartu gabe -ohartzeko premiarik gabe- neu nintzela zapataria soldaduen lapur bihurtu zuena, neu nintzela gezur haren **asmatzailea** . Anjel Lertxundi

Halaxe dabil mundua, nik ez dut asmatu eta asmatu izan banu, askoz okerrago ibiliko litzateke, ez bainaiz oso **asmatzaile** trebea. Hasieratik bereizi izan zirela, Panofskyk idazten duen bezala, "kopiatzaileak" alde batetik, alegia artista mimetikoak, errealitateari xehetasunez xehetasun lotzen zitzaizkionak, eta artista heuristikoak bestetik, hau da, **asmatzaileak** , naturaren zuzentzaileak; Polikleto hura bezala, zeinek, "giza irudiari egiaz gaindiko grazia eman zion", edertasuna antzaren izenean sakrifikatu gabe. Javi Cillero

Leopoldo Marechal, Aldolfo Bioy Casares eta Manuel Mujika Lainez izan omen ziren **asmatzaileak** , eta Borges bera ez omen zen izan asmazioa sinetsarazi zigun aktore on bat baizik. Joxean Agirre

Urte horretan berean eskoziar batek, John Logie Baird-ek hain zuzen ere, orain garrantzirik ematen ez diogun tresna bat asmatu zuen: zuri-beltzeko telebista, handik hiru urtera **asmatzaile** berak koloretako bihurtuko zuena. Pello Salaburu

Theuth izan omen zen, Egipto zaharrean, alfabetoaren **asmatzailea** . Joxerra Garzia

Neure lana burutzen dut, **asmatzaile** -edo bihurtzeko handinahirik gabe, baina balio dut neuk ere, ingeniariei iseka egiten dien Ohioko baptista batek adina bai behintzat, nik uste: batek eta bestek zer burutzen duen, horretxi erreparatu behar, ea zer den onuragarriago, eta nik muntaiak zuzentzen ditut, milioiak eta milioiak [...]. Joxe Austin

Arrieta

Onartzen dute idazkeraren **asmatzaileek** berezko hogeita bost sinboloak imitatu zituztela, baina halabehar hutsari zor omen zaio hartarako erabili izana eta liburuek ez omen dute berez deus adierazten. Juan Garzia

Esan nahi dut onartzen zuela beste gizon batzuk ere izan direla gizadiaren historian zehar eraginkorragoak eta gizakion ongizaterako onuragarriagoak -Fleming penizilinaren **asmatzailea** kasu, nire aitak asko miresten zuen bat aipatzeko-, baina Sabino Arana Goiriri debozioa zion, euskaldunontzat erabakigarria zen zerbait atzeman edo, nahiago bada, horrek ez baitio axola, asmatu zuelako; alegia, Euskadi euskaldunon aberria dela. Ramon Saizarbitoria

Gauza jakina da fikziozko pertsonaia batzuk haien **asmatzaileak** baino luzaroago bizitzera heltzen direla. Iban Zaldua

Ziro, pertsiarren erregea, bere gudarosteetako soldadu guztiei zeini bere izenez deitzen baitzekien; Mitriades Eupator, bere Inperioko 22 hizkuntzetan ematen baitzituen auzi-ebazpenak; Simonides, mnemotekniaren **asmatzailea**; Metrodoro, behin bakarrik entzundakoa errepikatzeko artean trebe baitzen. Juan Garzia

"Logaritmo naturala" edo logaritmo nepertarra esaten zaion, Napier, logaritmoen **asmatzailearen** izenetik. Jon Muñoz

Haren **asmatzailea**, Leo Baekeland doktorea, konturatu zen erretxina nabarmen sendotzen zela xehe-xehe egindako gai izpitsuren bat gehitzen bazitzaion, hala nola zerrautsa, erabat gogortu baino lehen. Irene Aldasoro

Noraren aitak, ordea, **asmatzaileak** zituen gogokoenak: gaixotasun berrietarako belar-biltzaile eta ukendugileak; pikatxoiak eta aitzurrak bazterturik, oilaloken zirinez igurtzitako hurritz-makila edo burdina imantatu bereziez urre bila saiatzen ziren ur-bilatzaileak; janariak ez galtzeko, neguko elurra leize sakonetara nola garraiatu buruan zerabiltenak. Anjel Lertxundi

Asmatzaileak biradera bati eragin zionean, hainbat posiziotan marraztutako emakume biluzi baten irudiz osaturiko paper-xafla bat hasi zen aparatuaren jiran. Anjel Lertxundi

Irudi haiek guztiak biraketaz zebiltzala adierazi zion neskak Ruche jaun liluratuari, eta, baita ere, **asmatzaileak** antze handiz konbinatu zituela hainbat forma geometriko: karratuak, zirkuluak, eta oktogonoak. Jon Muñoz

Italiako komunismoaren eta demokristauen arteko "konpromiso historikoa" deitu izan zenaren aurre-**asmatzailea** izan zela, Enrico Berlinguer baino 30 urte lehenago, izan ere. Koldo Biguri

Inoiz edo alkate bati ere sinistarazi ei zion WC siglen atzean, estatubatuarren **asmatzaileekiko** liluraren estalpean, komun-ontzi modernoak asmatu zituen Walter Coleman delako baten laburdura zegoela. Josu Landa

Gogora bedi nola 1896an Vacher de Lapouge-k, gorentasun nordikoaren iragarleak, bere teoria zabaldu zuen, zeinetan irakasten baitzuen, antzinako grekoak, zibilizazio europarraren **asmatzaileak**, jatorri ariarreko dolikozefaloak eta ile-horai-lak zirela, iparraldetik Heladera migratuak. Joxe Azurmendi

· Hara zergatik: nire-nire begiz ikusi ez banu, zeinek sinestarazi behar zidan niri, munduan tximino **asmatzaileak** badirenik? Patxi Ezkiaga

Jakintza (ez "zuhurtzia") etsipen izendatzaile bat da, eta izendatzaile bezain sortzaile eta **asmatzailea**. Iñaki Segurola

---

asmatzale ik **asmatzaile**.

---

asmatze *iz* bururatzea; buruan edo irudimenean sortzea.

Erran nahi baita ezen lehen izen emaite hartan eta izenen **asmatze** hartan sortu zituela gizonak lehen metaforak, zeren izen haiek ez baitziren paradisuko izenak eta ez baitzeuden, ondorez, izanari lotuak. Joan Mari Irigoien

Ikaragarrizko erraztasuna daukagu bizia eta bizitzea proiektuak eta helburuak eginahalean betetzearekin nahasteko, edo, larriagoa dena, proiektuak **asmatze** hutsarekin. Iñaki Segurola

Sarritan badirudi ezen egun dugun arazorik handiena baliabide berriztaezinak -petrolioa kasu- agortzea dela, eta bada gizakiaren **asmatze** ahalmenaren aldeko ahotsik ere, aurrerapen teknologikoen bidez baliabide horien agortzea dela-eta ordezkoak aurkitu ahal izan ditzagun. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eta ezin **asmatze** hori areagotu egiten da hiltzailea gaztea bada eta hiltzeko motiborik ez zuela iruditzen zaigunean. Gotzon Garate

Eszenak **asmatze** horri deitzen diogu norbait "ezagutzea", norbaitekin "pentsatzea", norbait "gogoko izatea"! Anton Garikano

---

asmatzeke *adlag* asmatu gabe.

Horiek horrela, pixkanaka txarrena hoberantz bultzatzeko, **asmatzeke** dauden tratamenduok aurkitzeko, atsedenik gabe jarraitu beharra dago ikertzen. Juan Garzia

-Zer proposatzen duzu, soldadu? -galdegin zion Ginsburg komisarioak, begiak beltzean beltz, aurpegi imintziorik gabe, aurrean zuen soldaduaren asmoak zein ziren **asmatzeke**. Felipe Juaristi

---

asmazio **1** *iz* asmatzea, buruan edo irudimenean sortzea.

Jainkoa ez duk existitzen, ergelen **asmazio** bat duk. Fernando Rey

Hemendik aurrera hire **asmazio** horrekin entretenituko duk mundua. Anjel Lertxundi

Artean ere ez nuen ulertzen nola gerta zitekeen hura bezalako gizon bat, suisarra eta oinak lurrean zituena izaki berez, bisionario fanatiko hark bere **asmazio** eta gogobideetara ekarri izana. Juan Garzia

Jainkoaren existentzia, nire lagun laztana, **asmazioa** al da? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Dokumentuak salbatzea, edo haurra salbatzea, edo gaixoa sendatzea, arerioa hiltzea, **asmazioa**, horrek baizik ez dio axola!. Josu Zabaleta

Sexu-kitzikadura areagotzeko ipurdiak zigorrez zapintzea ez da Donatienen **asmazioa**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nork daki gu ere ez ote garen **asmazioren** baten biktima? Nork ziurtatzen du gaur ehortzi eta omenduko dugun Romain Gary hori pertsonaia apokriforen bat ez dela? Joxean Agirre

Urte batzuk lehenago ni neu debozioz laztantzen ninduenean ere, artelan baten azala ukitzen den gisan ukitzen ninduela, zerbaiten ordezkapen edo bere **asmazioetako** izaki bat nintzelakoan beharbada, inoiz neu nintzena atzematera iritsi gabe. Joxean Agirre

Zure arerioa hiltzeagatik, zure semea salbatzeagatik, zure gaixoa sendatzeagatik, zure **asmazioagatik**, asmatzailea bazara, trukatzen duzu zeure burua! Josu Zabaleta

Ahulezia honek galaraziko dio **asmaziozko** fabulazioa -zeinean denok, nork gehiago nork gutxiago, hartzen baitugu parte-, sinesgarriki erabiltzea. Jon Alonso

Lehendabiziko pasadizoaren arabera, Pragako kopistek deabruaren **asmaziotzat** jo zuten inprenta eta matxinatu ere egin ziren lehendabiziko inprenta hirira heldu zenean. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Idazpena jatorriz **asmazio** majikoa da, magoek egin eta zabaldua. Patziku Perurena

Einsteinek Lorentz maisuarengandik ikasi zuela esaten digu gure ulermenak ezin zula dezakeela gauzen izaterik, zer-izanik eta esentziarik; fisika teorikoaren kontzeptu eta lege oinarrizkoak -segitzen du- asmatuak eta fikziozkoak dira (sic, hitzez hitz), giza adimenaren **asmazio** libreak dira (XX. mende hasieraz geroztik, jakina, ez Newton baten sasoian). Iñaki Segurola

Halako malenkoniaz bete zituen Borgesek bere gau luzeak **asmazio** harrigarriz. Juan Garzia

Mesprezatu egiten ditut **asmazio** nazkagarri horiek guztiak; eta orain arte ezinagatik edo ezjakintasunagatik adoratzen nuen Jainko hori ere, jada izu-iturri besterik ez da niretzat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gogortuta duzunean edozein astakeria esaten duzu, eta egiaren prezioan saltzen dizkiguzu zure irudimen sukartsuaren fruituak baino ez diren **asmazio** lizunak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hark, modu gordin samar batez, zalduneriazko **asmazioei** bere herrialdeko errealitate probintzianoa kontrajartzen die; Menard-ek, berriz, Lepanto-ren eta Lope-ren mendeko

Carmen-en lurraldea hautatzen du "errealitate"tzat. Juan Garzia

Ez daki -nola jakin?- urrearen **asmazio** ametsezkoa errealitate mendekuzkoa bilakatu diola salatariari. Anjel Lertxundi

3 (hiz elkartuetan)

Denboraren kezkarik gabe ibiltzea atsegin zitzaion aspaldi ikusi gabeko tokietan, giza **asmazioaren** neurria erakusten zuten tokietan batez ere. Anjel Lertxundi

Golema edo Gizon ikusezina bezalako literatur **asmazioen** osaketan beti dago zientzia mekanizistaren edo alkimiaren kontrako jarrera. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
asmazio hutsa da (4); **beste asmazio** (4)

---

asmaziozale *izond* asmazioen zale dena.

Ikuspegi motzak eta erlijio doilor eta **asmaziozale** horren dogma eta misterioen txepelkeriak, laster kamustuko lukete arima errepublikarraren fiertasuna, eta luza gabe eroriko litzateke berriro, duela gutxi hain adoretsu hautsi duen uztarriaren menpean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

asmaziozko *izlag/izond* asmazioz egina.

Hasierako aitorpena, sormen literarioa ez zelako sekula bere dohanik garatuena izan, eta, bistan da, ahulezia honek galaraziko dio **asmaziozko** fabulazioa -zeinean denok, nork gehiago nork gutxiago, hartzen baitugu parte-, sinesgarriki erabiltzea. Jon Alonso

XIX. mendean Grezia betiereko baina neurri handi batean **asmaziozkoa** zen batenak ziren: edertasuna, harmonia, oreka, eta abar. Josu Zabaleta

---

asmo *(ETCn **173.308** agerraldi)* **1** *iz* zerbait egiteko burutapena.

Ez al gara ergel hutsak, joateko **asmo** hau dela eta? Julen Gabiria

Orduan erretorak zuzenean fraileei eman zien bere **asmoaren** berri haiek Arbelbide bilduko zutelako esperantzarekin. Xipri Arbelbide

Arren, jauna, erregutzen dizut ez uzteko gizon honi bere **asmoa** betetzen, niretzat izugarria da-eta. Josu Zabaleta

Behin baino gehiagotan hartuko zituen seguru asko Jose Ramonek paper haiek esku artean; edozein gauza egiteko gai garela uste dugun beroaldi horietako batean, beharbada, nahiz eta gero **asmoak** aurrera ateratzeko une egokia ez dugun egundo topatzen. Rafa Egiguren

Bigarrenean eho ez, baina bere **asmoa** lortu zuen. Gotzon Garate

Metelok, itzulia baitzen, emaztearen **asmoa** igarri, eta burla egin zion. Juan Garzia

Baina hemen kontzeptuaren historiara mugatuko gara, eta apunte batzuetara bakarrik, esaustibotasun uzirik gabe, oroz gain alor nagusi batzuk seinalatzea beste **asmo** barik, gazteren batek artoski ikertu nahi baleza, nondik hasi baduela erakusteko adina. Joxe Azurmendi

Baina ez nuen **asmorik** promesa kunplitzeko. Juan Garzia

Eta, gainera, badirudi horretarako batere **asmorik** ez daukala. Fernando Morillo

Soinua jotzen ikastea izan zen **asmo** hori lortzeko biderik errazena eta atseginena. Xabier Etxabe

Baina **asmoa** baldin bazuten nire aurrean elkarri gauza sekreturen bat kontatzeko, ez zuen inporta zer hizkuntzaz, hobe zutela mesedez nik alde egin arte itxaron. Matías Múgica

Erretorikako eskuliburuek hitz jolasak-eta bildu bai baina ez diete, ordea, tratamendu berezirik egiten, oso bestelakoa den **asmo** baten mende baitaude. Iñaki Arranz

Jakin zuenean Rebekak Esau seme nagusiaren **asmoen** berri, seme gaztea beregana deitu eta esan zion: Jose Antonio Mujika

Ez da nire **asmoa** aztertzea ea poesia berez jarduera ona den, / erantzunik gabeko galdera, / negozio ona bilaka ote daitekeen baizik. Jose Angel Irigaray

Baina, erronka handi samarra zen **asmo** hori gauzatzea. Pello Zabala

Gehiago ere baginen **asmo** horretan. Bernardo Atxaga

Kezka zekarten, ez zuten baiezkorik gabe ateratzeko **asmorik**. Iñigo Aranbarri

Egun batean hizpide izan zuen Tomas danbolindariak, herriko gazteek ekainaren hastapenetik San Joanak pasatu arte egin **asmo** zuten txondorra. Hasier Etxeberria

Udalaren joera beti aurkakoa izanik, dirurik gabe kultur ekitaldiak antolatzeak badu meriturik; sinestu egin behar duzu zeuk, eta sinetsarazi besteei, zure **asmoetan** parte hartu behar dutenei. Pako Aristi

Azkenean, haatik, luze samar eztabaidatu ondoren, ez zuen halako zentzugabekeriatzat ere jotzen nire **asmoa**, hots, organismo gorenen eta bereziki saguaren baitako erregulazio-sistemak ikertzea. Juan Garzia

Ni harritu samar nengoen, eta ez nuen asmatzen zer **asmo** ote zuen. Josu Zabaleta

Asmo horixe nuen oraingoz, baina ez nekien hurrengo egunean zer egin, eskolara joan ala ez, eta, batik bat, Adelak arratsaldeetan ematen zigun eskolara joan ala ez. Juan Kruz Igerabide

Hala agertu zion Albertori, baina beste **asmo** bat ere bazerabilen Justok. Joxemari Urteaga

Galderri bestelako **asmoak** bururatu zitzaizkion. Lutxo Egia

Guztia jaso eta etxera abiatzera zihoazela, Ateneak beste **asmo** bat erakutsi zuen: Ulises esnarazi zuen, Nausikaa ikus zezan. Juan Kruz Igerabide

Ongi baino hobeto hartu zuten Frantzian, baina ia ezezaguna izan zen beraren sorterrian; horregatik idatzi zuen Leviatan- a, bere **asmoari** uko egin beharrean. Esteban Antxustegi

Hark baietz, **asmo** bera zuela aspaldian gogoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Berak azkura sentitzen duelako jaurtitzen du gezilariak gezia, jomugan duenari azkura hori txertatu beste **asmorik** gabe. Joxerra Garzia

-Ze **asmo** dun? Anton Garikano

Gure **asmoa** izan da, dena dela, hausnarketa zabal bat egitea unibertsitateak gizartean duen zereginaz. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Harago, beste bi gerlari azaldu ziren sasien artetik, **asmo** eta kolore berdinak erakutsiz. Joanes Urkixo

Baina garapen honek lan honen **asmoetatik** harantzago eramango gintuzketen arazoak sortzen dizkigu. Itziar Laka

Asmoa han metrailadore bat ezartzea omen zen. Edorta Jimenez

Ordurako beste **asmo** batzuk bainituen buruan bueltaka. Joxemari Iturralde

Zu behin ikusi, zurekin behin topo egin, hori beste **asmorik** ez neukan, berriz ere nire begiradaz zure aurpegia bildu ahal izan. Eduardo Matauko

Frantziako erresistentziaren sareetan satorrak sartu eta erreboltarien **asmoak** zapuztea? Harkaitz Cano

Aitzitik, ontziburuaren **asmoa** nire egin-moldeak aztertzea zelakoan nago. Edorta Jimenez

Zoritxarrez, hirugarren haren presentziak ez zituen itxuraz Omochi jaunaren **asmoak** aldaraziko. Joxan Elosegi

"Hau aterako al da liburuan?", galdetzen dit bat-batean batek, nire **asmoa** irakurri izan balu bezala. Arantxa Iturbe

Adibide horiek sinkronian erakusten digute, hots **asmoak** hots fisiko bihurtze horretan bertan. Lourdes Oñederra

Hau ere neskame lanean ari zela uste zuen Mariek, baina ez, Parisa **asmo** horrekin etorri bazen ere laster prostituta zen. Iñaki Zabaleta

Bazirudien jadanik bertan zuela heriotza, jende batzuek berarentzat asmatua eta haien **asmoetan**, haien buruan baizik ez zena, eta bertan iraungo zuen, eta ez zuen alde egingo jende haiek harrapatu, bonbak kendu eta espetxe gotor batean sartu arte. Jose Morales

Poztu egiten zela nire **asmoarekin**, eta bidaliak zizkidala, lagunduko zidatelakoan, paperak eta argazkiak. Bernardo Atxaga

Badirudi ez duzula **asmorik** merezi ez duten txikikerietan nekatzeko. Lourdes Oñederra

Gure **asmoa**, hain zuzen, geure begiz ikustea zen, geure eskuz eragin eta burutzea, eskolako kimika-liburuak halako egoki eta aise deskribatzen zituen fenomeno haietariko bat bederen. Juan Garzia

"Atseginaren bila jarduteko iratzartzen nintzen egunero: **asmo** hau buruan, beste guztia ahazten zitzaidan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 (izenondoekin)

Batzuek interes antropologiko, politiko, kultur-kritikoekin bidaiatu dute, beste asko ikusmin turistiko edo **asmo** literario hutsekin. Koldo Izagirre

Garaiz ohartu zen **asmo** absurdoa zela. Anton Garikano

Denak balakatzen zituen, baina **asmo** oneko ironia tonu batez beti, diren guztiak dastatu dituen hedonistaren jarrera aspertua hartuta. Koro Navarro

Baina honek Lukrezioren ardatz **asmo** askatzaileari arazo bat planteatzen dio berehala: nola beldurra baztertu. Xabier Amuriza

Harroa haiz, bazakiat, eta **asmo** bihurriak dituk: borroka ikustera etorria haiz hi! Jose Antonio Mujika

Neska geldi geratu da, erruki eske, han dago, larri, babesgabe, bere borreroen **asmo** sadikoen menpe. Juan Martin Elexpuru

Oroitzapenek zama handiagoa dute dagoeneko nire bihotzean, **asmo** berriek baino. Koldo Izagirre

Berriemaile objektibo batek esango zuen heldu berrien buruan ez zebilela inongo **asmo** mehatxagarririk. Patxi Iturritegi

Irudia: **Asmo** handiko izenburua, bere laburtasunean ere, zeren esango bailitzateke giza jardueraren eremu zabal bat jarri nahi diola gaitzat liburu honi. Josu Zabaleta

Azkenik, **asmo** estetikoari (edo literario-artistikoari) dagokionez ere, gorabehera handiak daude euskal herri-literaturaren sailean sartzen diren genero eta agerkarien artean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Irudipenak, agian; baina zer nahi duzu? Beti izan dut nik halako osasun moral bat izateko **asmo** madarikatu hori! Josu Zabaleta

-Ez neukan **asmo** txarrik. Koro Navarro

Zazpiak Bat haren -Iparraldean gaur egun entrismo berdinaz agertzen den Seiak Bat hau bezala!- **asmo** nagusia, lege orokorraren aurka zebilen, argiki. Itxaro Borda

Halabehar hutsez gertatu ote zen dena, inork hartarako **asmo** berezirik izan gabe? Iñaki Iñurrieta

Agian horregatik, esan ohi da **asmo** onez idatziriko liburu bakoitzak bere irakurleak bilatu nahi dituela. Jon Alonso

Orduan begiak ixten ditu, begiak ixteko diruak ematen dizkion aukera guztiak profitatuz, eta isiltasuna agintzen du bere etxean, bere lagunartean, agindu gabe ere isiltasun hori hausteko **asmo** handirik ez daukaten bere dirukideen artean. Pako Aristi

Hemen Kawabata hasierako **asmo** berritzaileen eta tradizioaren balioespen positibo berri baten artean dabil. Ibon Uribarri

Nik **asmo** sendoa nuen uda pasatu eta atzera berriz Bartzelonara itzultzekoa. Joxerra Garzia

Adak, mantso eta hitzak markatuz, **asmo** iraingarria ere garbi uzteko. Anjel Lertxundi

-Ez al didazu ba esango inoiz ez zuela...? -Ceciliak **asmo** txarrez egin zuen irribarre. Jon Muñoz

Harekiko ene gibel **asmo** goibelak ehortziz, irriz urratu nintzen, azkenean lasaitua. Itxaro Borda

Polly, jakina, ibiltzen zen limurkerietan mutilekin, baina Mooney andreak, epaile maltzurra izanik, bazekien mutilak denbora-pasa bakarrik ari zirela, haietako inork ez zuela **asmo** seriorik. Irene Aldasoro

Baina aurrera jarraitzeko **asmo** irmoa duzunez, ez dizut oztoporik jarriko". Iban Zaldua

Hura, Noaingo hiltegitik alde egin ondoan, gerlan segitzeko **asmo** tinkoan zebilen errege Henrikeren agindupean. Aingeru Epaltza

Beraz, merkataritza- **asmo** handiak ez dira monarkientzat eginak, baizik eta zenbait lagunen bidezko gobernu-erarentzat. Iñaki Iñurrieta

Asmo ideologiko garbia duen hoztasuna. Iñigo Aranbarri

Asmo zaharra, bestalde. Edorta Jimenez

Irrigarria ez balitz, orijinala ere bazela esango nuke Baionako Katedrala ipurdiz gora botatzeko nire **asmo** aldaezina. Hasier Etxeberria

Eta nik ere duintasunez jarraitu nuen emakume zapalduen **asmo** ezkutuenak asetzen. Jon Arretxe

Hori dela-eta, Goia baserrira bihurtzeko asmoa (**asmo** zindoa, ez pentsa), dexente atzeratu zitzaidan. Txillardegi

Dialektika hitzak, aspaldian entzun gabeko hitz horrek, antzinako historia linterna batekin errebisatuz, gaztetan irakurritako hainbat liburu eta eskola sozialetan eztabaidaturiko hainbat **asmo** utopiko ekarri dizkit gogora: Joseba Sarrionandia

Badu **asmo** galgarri hori bideratzeko dirua ere. Anjel Lertxundi

Alderantziz, beti esaten dute unibertsitatea oso garrantzitsua dela eta hura babesteko eta laguntzeko **asmo** zintzoa dutela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Orduan, bihotza arin eta lasai, sufre uretan bainatu ostean bezala, erabat berri eta erabat bestelakoturik, itzulbidea hartu zuen Jusuf Khanek, emakume nafarra ahazteko **asmo** sendoz, jakinik bizitzaren azken txangoari ekitera zihoala. Felipe Juaristi

Asmorik santuenaz beterik egonda ere, begira nola erabiltzen nauten. Koldo Biguri

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez diat halakorik egiteko **asmo**-izpirik. Antton Olano

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Klasikoak, S.A. lukro- **asmorik** gabeko elkarteak argitaratu du obra hau, elkartearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik: Iñaki Iñurrieta

Herriak oro etorri eta zure aurrean ahozpeztuko dira, zure salbamen **asmoak** denen aurrean agertu baitira. Elizen arteko biblia

Bide asko zituen, Elizaren tradizio eta jakinduriak mendeetan zehar antolatuak, perfekzio- **asmoak** hezur-mamitzeko. Askoren artean

Giza irizpide hutsez gidaturiko gizon hark, beretarrengana itzuliz, ondasunak berreskuratu zituen eta, pobreei eman nahi ez zizkienez, laster asko utzi zuen bertan behera bere bertute- **asmoa**. Askoren artean

Eta lortzen badut, Pavel Ivanovitx, nire ahaleginen saria eskatuko dizut: bertan behera utziko dituzu eroste- **asmo** guztiak. Jose Morales

Goizeko ordu biak jotzekotan zeuden Irkutskeko katedraleko kanpandorrean, eta inolako zantzuak ez zuen susmarazi setiatzaileen borroka- **asmoak** zein ziren. Karlos Zabala

Garbi dago helburu jakinen baterako sortu izan direla gizarte guztietan irudi gehienak (propagandarako, informaziorako, erlijio- **asmoetarako**, ideologiazko asmoetarako oro har), eta horretaz ere hitz egingo dugu geroxeago. Josu Zabaleta

Barruko kontenplazio honetan irautea, une bat besterik ez bada ere, hobe da kanpoko egintza eta bizitza- **asmo** guztiak baino. Joan Mari Lekuona

Hortaz, ez nengoen opor- **asmoetan**, kontuan hartu gabe, gurean, Kristina genuela beti udaren antolatzaile. Aingeru Epaltza

Ospe- **asmoz** beteta, Atenas, bere eragina handitu ordez bekaizkeria handiagotzen zuelarik, bere itsas nagusigoa zabaltzeaz bertatik gozatzeaz baino arduratuago zelarik. Iñaki Iñurrieta

5 ***asmo gaizto***

Gizajo ergel hark ez zuen igartzen zer **asmo gaiztoa** zerabilten haiek guztiek beren txantxetan. Josu Zabaleta

- Ba ote da arrazoirik gizaseme bat garbitzeko? -itaundu zuen Emmak **asmo gaiztorik** gabe. Lutxo Egia

Jauna, auzi-entzuleon aurrean **asmo gaiztoaren** ukapen honek nazala hain errugabetu zure gogo-bihotz guztiz zabalean, nola baininduke, etxe gainera bota gezia, eta anaia zauritu banu. Juan Garzia

Ostruka, iz, Hegazti handi bat, (bere bekatuengatik dudarik gabe) naturak ukatu diona atzeko hatz lodia, non hainbat naturalista bihotz onekok ikusi duten **asmo gaizto** baten froga nabarmena. Xabier Olarra

Zerbait gogoratu zitzaidan, halako ziri tiki bat, aski xaloa eta **asmo gaiztorik** gabea, etxeko "neskato" edo zerbitzari berriaren xarmantaz, baina gisako ateraldi bati ez zitzaion begitarterik eginen. Aingeru Epaltza

"Israelek ezin du inondik inora onartu gure aurkako **asmo gaiztoak** dituen inork suntsipen handiko armen gaineko kontrola edukitzea», ohartarazi zuen Olmertek. Berria - Mundua

Alberto Friasek nahasi egiten du hori guztia bere artikuluan, **asmo gaiztoko** edozein ezjakinek eta arduragabek egingo lukeen bezala. Berria - Euskal Herria

Nikanor **asmo gaizto** horrekin zetorkiola ohartzean, Judasek, haserreturik, ez zuen gehiago ikusi nahi izan hura. Elizen arteko biblia

Bada, gutun horiek demostrazioen berri jakiteko **asmo gaiztoz** irakurriko lituzketenei, noski. Jon Muñoz

Barkatu, ez dut **asmo gaiztoz** esan. Jon Alonso

Baina printzipio zintzo horren atzean, estetikarekin zerikusi gutxi duen alde ezkutu bat omen zegoen, Txikierdi ikusi ere ezin zuen jendeak **asmo gaiztoz** esaten zuenaren arabera: narrazio-liburu pare bat argitaratu zuen, antza, komuna hartan bizi izan zen garaian. Anjel Lertxundi

Baina orain hilik zen senarra, eta Harryk bazuen **asmo gaiztoren** bat, eta Valerie sumindua hura suntsitzera abiatu zen. Oskar Arana

Txitxikovek, amorruaren amorruz, lurrera jaurti zuen sablea, aldean eramaten baitzuen beti bidaietan, behar adinako beldurra eta begirunea sorrarazteko **asmo gaiztoko** jendearengan. Jose Morales

Egina du, gaur goizean, inguruotan **asmo gaiztoren** bat baduela pentsatzeko bidea eman zezakeen horietako txango bat, hala nola zuri bururatu baitzitzaizun. Jon Muñoz

"Seme, **asmo gaiztoak** ikusten ditut zure begietan", esan zidan amak. Juan Kruz Igerabide

6 *asmo handiko*

Madrazok argi utzi nahi izan zuen, Jaurlaritzak aurten iazko aurrekontuak luzatuta jardun beharko badu ere, ez dela "arazorik izango horren **asmo handiko** egitasmoa garatzeko». Berria - Euskal Herria

Presidenteari izendapena eskertu eta etapa berriari gogotsu ekingo diola adierazi zuen Ricek: "**Asmo handiko** agenda ezarriko dut». Berria - Mundua

- Nik ez dut esan **asmo handiko** gizona ez naizenik. Lopez de Arana

Asmo handiko izenburua, bere laburtasunean ere, zeren esango bailitzateke giza jardueraren eremu zabal bat jarri nahi diola gaitzat liburu honi. Josu Zabaleta

Taldeko arduradunek, hala ere, **asmo handiko** helburua jarri diote euren buruei: hiru urte baino lehen lortu nahi dute txapela. Berria - Kirola

Asmo handiko zabalkundea jarriko dugu martxan. Berria - Ekonomia

7 *asmo izan*

Bidaia **asmo zenean**, auskalo zenbat museo eta filme ikusi behar omen zenituen, antzerkia ere bai, alemana ongi ikasteko ezin hobea izango omen zen gauza ezagunak alemanez ikustea. Lourdes Oñederra

8 *asmoa hartu*

Gero, hiriko ateak itxiak zeudela ikusita, alde egin zuen handik, baina berriro etorri, jendea erabat suntsitzeko **asmoa harturik**. Elizen arteko biblia

Gure aitaren aita hil zen aurrena, aita jaio baino lehen, arestian esan dudan bezala; eta gure amaren aita nik urtebete nuenean hil zen, artean nire gurasoek Cecilia sortzeko **asmoa hartu** gabe zutela. Jon Muñoz

Zumaia inguruko lur labainek itsasoa bisitatzera joateko **asmoa hartu** zuten batean -hainbatetik beste batean esan beharko- errepidea eraman zuen beraiekin, eta Zumaia eta Getaria arteko bidea moztuta geratu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Asmoa hartu nuen zeruko Hitz honetaz hemen hirugarrenik mintzatzea. Joan Mari Lekuona

Zirenak zirela, hurrengo baterako **asmoa hartu** genuen, ez hitzordu finkatu eta zehaztua, baina bai halakoetan ohi den "egongo gara" lauso hori baino mami gehiagokoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Bazirudien Stanislaus Dembak **asmoa hartua** zeukala jakintsuei lanean ez uzteko. Anton Garikano

Ez zait erraza gertatu zuri deitzeko **asmoa hartzea**. Koro Navarro

Analistaren kontu hori ikertzeko **asmoa hartu** nuen, baina inork ez zekien deus hartaz: nire galderek ganora edo arretarik gabeko erantzunak eragiten zituzten. Juan Garzia

Eta orduan ere Oscar Wilderen ipuina antzezteko **asmoa hartu** zuten, horixe esan zidan behintzat Leirek. Joan Mari Irigoien

Anarekiko harremanak eteteko **asmoa hartuta** zeukanean -argudio bila ibili eta ez zuen aurkitu "ez dut loturarik nahi" baino funts handiagokorik bat ere-, dena pikutara. Iñaki Iñurrieta

Ondoren, beharbada oharra moldatzeko erraztasunak animatu ninduelako, bat-bateko etorriaz profitatuz -eta idazmahaiaren aurrean boligrafoa eskuan nengoelako ere bai-, gauza da Victoriarentzat ere lerro batzuk idazteko **asmoa hartu** nuela. Ramon Saizarbitoria

9 ***gibel asmo*** *(orobat* ***gibelasmo****)* azpikeria.

Autobusak Iruñen utzi nau eta han, **gibelasmoak** bultzaturik, huts egina nuen Magdalena zubira noa, Galbarioa ikusiz. Piarres Aintziart

Gibelasmorik gabeko aipua zen erabat. Aingeru Epaltza

Zuzenean ez bada, zirtoka; **gibel**-asmoz, ironia baliatuz. Anjel Lertxundi

Lehen erreakzioan, **gibel**-asmoz ari ote zitzaidan pentsatu nuen, baina ez, aitak zintzo ziharduen, irri abegikor bat ezpainetan. Joan Mari Irigoien

Irri zuri batez eman zion azkenburu esaldiaren nabarrari, **gibelasmoaz** inolako dudarik geldi ez zekidan. Aingeru Epaltza

Eta gaitz-erranka aritu zituan, aitaren asmoak **gibelasmoak** ez ote ziren... Joan Mari Irigoien

10 ***goi asmo*** *(orobat* ***goiasmo****)* ik **goiasmotsu**.

Eta, Jeanne sutzarrean erre zutenean, Gillesen itxaropen eta **goi**-asmo guztiak bertan behera joan ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Famarik gabea ez ezik baita **goi** asmoetatik urrun ibilitakoa ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Horra bi esaldi tan nire **goi**-asmoak porroskaturik, nire balizko harrotasunak lurrarekin berdindurik. Xabier Mendiguren Elizegi

Borreroarentzat, sinestun den aldetik, Jesukristo gurutziltzatzea litzateke **goi**-asmorik ederrena. Karlos Linazasoro

Aspaldiko **goiasmoa,** giputxena, kastillano garbi izan nahiarena. Patziku Perurena

11 *irabazi asmo*

Kapitalismo hitzak, Wallersteinen iritziz 1993, 292-293 or., ez du adierazten, ez ekoizpen-indarren garapen-maila jakinik, ez soldata-erlazioaren nagusitasunik, ez **irabazi asmoko** enpresak izaterik, ezta elementu horiek guztiak aldi berean gertatzerik ere. Koro Navarro

213 urteren buruan, **irabazi asmorik** gabeko elkarte izateari utzi eta elkarte anonimo bihurtu da Wall Streeteko burtsa. Berria - Ekonomia

Aurten Europako Mendi Txapelketa osoa korrituko du, FIAk ezarri duen Emakumezkoen Kopa **irabazi asmoz**. Berria - Kirola

12 *irabazi asmorik gabeko erakunde*

Izan ere, giza hazia ez baita **irabazi asmorik gabeko erakunde** baten esku jartzen, baizik eta jaso duen klinikaren esku geratzen da. Berria - Gaiak

Hemen, berriz, **irabazi-asmorik gabeko erakunde** batean dabil boluntario, eta horrek eta soldatapeko beharrak uzten dioten denboran, euskaltegian dabil euskara ikasten. Berria - Harian

Legez **irabazi asmorik gabeko erakundea** garenez, ezin dugu ezein hautagairen alde bozkatzeko eskatu. Berria - Mundua

13 ***isil-asmo*** *(corpusean* ***isilasmo*** *soilik)*

Berariaz, **isilasmoz** eta azpikeriaz egin du leku bat, bortxaz, Altzabeheititik 848 kilometrora dagoen espetxe honetako bigarren galeriako presoen mahaian. Koldo Izagirre

14 ***merkataritza-asmo***

Merkataritza-asmo handiak ez dira monarkientzat eginak, baizik eta zenbait lagunen bidezko gobernu-erarentzat. Iñaki Iñurrieta

15 ***ontzeko asmo***

Aimar Irigoienek 218 kilokoa leporatu zuen iazko urriaren 9an, eta marka hori **ontzeko asmo** osoa du Perurenak. Berria - Kirola

Marka **ontzeko asmoa** du21 urte bete aurretik. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 15 aldiz agertzen direnak)

asmo bakarra (36); **asmo bat** (29); **asmo batzuk** (22);asmo guztiak (32); **asmo handiko** (44); **asmo handirik** (15); **asmo hori** (111); **asmo horiek** (45); **asmo horrekin** (44); **asmo horren** (16); **asmo hura** (21); **asmo nagusia** (18); **asmo ona** (16); **asmo onak** (21); **asmo oneko** (36); **asmo onez** (25); **asmo sendoa** (36); **asmo txarrez** (37); **asmo txarrik** (28); **asmo zuen** (15); **beste asmo batzuk** (17); **egin asmo** (54); **egiteko asmo** (23); **gure asmo** (24); **haren asmo** (16); **nire asmo** (24); **zein asmo** (26); **zer asmo** (67)

aldatzeko asmoa (25); **antolatzeko asmoa** (27); **argitaratzeko asmoa** (15); **aritzeko asmoa** (17); **asmoa adierazi** (22); **asmoa agertu** (247); **asmoa azaldu** (121); **asmoa berretsi** (30); **asmoa bertan behera** (18); **asmoa da** (95); **asmoa dago** (26); **asmoa dagoela** (16); **asmoa dauka** (50); **asmoa daukala** (19); **asmoa daukat** (16); **asmoa**

daukate (21); **asmoa du** (359); **asmoa duela iragarri** (21); **asmoa dugu** (55); **asmoa dut** (41); **asmoa dute** (202); **asmoa dutela** (102); **asmoa duten** (26); **asmoa duzu** (29); **asmoa erakutsi** (30); **asmoa ez da** (49); **asmoa ez dela** (17); **asmoa ez zen** (18); **asmoa hartu** (24); **asmoa iragarri** (54); **asmoa izan** (59); **asmoa izatea** (16); **asmoa nuen** (37); **asmoa omen** (15); **asmoa zen** (24); **asmoa zeukan** (15); **asmoa zuela** (96); **asmoa zuen** (135); **asmoa zutela** (53); **asmoa zuten** (88); **ateratzeko asmoa** (20); **aurkezteko asmoa** (66); **bat egiteko asmoa** (50); **benetako asmoa** (19); **bere asmoa** (118); **betetzeko asmoa** (21); **biltzeko asmoa** (44); **bultzatzeko asmoa** (17); **egiteko asmoa** (457); **egiteko asmoa agertu** (25); **egiteko asmoa azaldu** (21); **emateko asmoa** (46); **eraikitzeko asmoa** (31); **eramateko asmoa** (38); **eskaintzeko asmoa** (17); **euren asmoa** (37); **eusteko asmoa** (33); **ezartzeko asmoa** (18); **gobernuaren asmoa** (18); **gure asmoa** (144); **haien asmoa** (15); **haren asmoa** (26); **hartzeko asmoa** (60); **hasierako asmoa** (36); **hasteko asmoa** (27); **hiltzeko asmoa** (46); **idazteko asmoa** (20); **itzultzeko asmoa** (28); **ixteko asmoa** (19); **izateko asmoa** (32); **jarraitzeko asmoa** (166); **jarraitzeko asmoa agertu** (16); **jartzeko asmoa** (60); **joateko asmoa** (90); **jokatzeko asmoa** (20); **jotzeko asmoa** (37); **kaleratzeko asmoa** (17); **kentzeko asmoa** (21); **lan egiteko asmoa** (15); **lanean jarraitzeko asmoa** (22); **lortzeko asmoa** (17); **nire asmoa** (141); **osatzeko asmoa** (22); **parte hartzeko asmoa** (24); **saltzeko asmoa** (22); **sartzeko asmoa** (32); **segitzeko asmoa** (35); **sortzeko asmoa** (39); **uzteko asmoa** (72); **zabaltzeko asmoa** (28); **zer egiteko asmoa** (21); **zuen asmoa** (27); **zure asmoa** (15)

egiteko asmoarekin (44)

asmoaren berri (28)

asmoen arabera (20); **asmoen berri** (88); **asmoen berri eman** (19); **bere asmoen berri** (17)

---

asmoan (-tzeko atzizkiaren eskuinean) *adlag* zerbaiten asmoarekin. ik **asmoz**; **asmotan**; **asmoarekin**.

Aitzitik, okupazio indarrek eutsiko balute Muktada al-Sadren atxilotzeko **asmoan**, egoera are suminduko litzatekeela ohartarazi zuen erlijioburuaren bozeramaileak. Berria - Mundua

Atera joan nindunan hainbat aldiz, ondo itxita ote zegoen ikustera; gero higan pentsatzen saiatu nindunan, lokartzeko **asmoan**; baina hi soslai hits bat baino ez hintzen, ihesari emana, nire beste oroitzapenen antzera. Eskarne Mujika

Gauerdi baino lehentxeago sartu nintzen tabernara, trago bakarra egin eta berehala alde egiteko **asmoan**. Matías Múgica

Islamdarren artean ere, bertako jabearen lurraldera oinutsik sartzen da arrotza, hartara indarrez deus bereganatzeko **asmoan** ez datorrela adieraziz. Patziku Perurena

Filma anuntziatzen zuen kartelean, gizon bat ageri zen itxuraz urrutiko abentura batean galtzeko **asmoan**. Matías Mujika

Zin egin dut eta tinko nago zure erabaki zuzenak gordetzeko **asmoan**. Elizen arteko biblia

Errekisa txukun bat egiteko **asmoan** hartu genuen zenbait lagunek noizbait Eibarrera, kanoiak behar genituen gure baforeak artilatzeko. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asmoan ez (3); **bere asmoan** (5); **boto asmoan** (3); **egiteko asmoan** (3)

---

asmoarekin (-tzeko edo -rako atzizkien eskuinean) *adlag* zerbaiten asmoz. ik **asmoz**; **asmotan**; **asmoan**.

Nago idatziko dudanetz ibili naizelakotz, ala ibiltzen naizen gero idazteko **asmoarekin**. Piarres Aintziart

Bihotz-zirraragatik lehenago baino aztoratuago, braust eseri nintzen ohean negarraldi eder bat egiteko **asmoarekin**, zintzurrean trabatua izan bainuen hamaika aldiz negargura. Fernando Rey

Mezuaren amaiera aldean, berriz, Albertok, arraunlari-jantziak nolabait erantzi nahian eta beste batzuez janzteko **asmoarekin** edo, honela esaten zion Elsari diosalarekin batera: Josetxo Azkona

Armadarentzat izendaturiko salgai-konboi harez gainera, baziren beste kotxe batzuk ere lepo-hezurreraino gauzez beteak, Baionako merkatari batzuek xeheka saltzeko **asmoarekin** hara eramanak. Koro Navarro

Aldatu, eguerdian jasotako gutuna sofa gainetik hartu eta lorategirako **asmoarekin** irten zen etxetik. Joxemari Urteaga

Zer deskribatzeko **asmoarekin** nengoen? Xabier Arregi

Nolanahi dela ere, gauza da Donostiako himno izateko **asmoarekin** martxa bat egin zuela Santestebanek, eta martxa hori, dirudienez, jo izan zen garai batean, baina ez zuen lortu Danborradaren martxa ofiziala eta iraunkorra bihurtzerik. Askoren artean

Izan ere, itzultzeko **asmoarekin** joaten baitziren. Juan Garzia

Gero, Kristori nolazbait jarraitzeko, lehen utzi zutena hartzeko **asmoarekin**. Patxi Altuna

Bosgarren edo seigarren egunean, urmaelak ikusteko **asmoarekin**, Manzanaresetik Ruiderarako bidea hartu genuen. Iban Zaldua

Nahiz eta legeek ez duten intentzioa zigortzen, honek ez du esan nahi intentziozko delitu batek, aurrera eramateko **asmoarekin** abiatzen bada, zigorrik merezi ez duenik, nahiz eta txikiagoa delitua bera burutuz gero baino. Juan Martin Elexpuru

Gelditzeko **asmoarekin** etorri al haiz? Xabier Paya

Pentsamendu hau paper solte batean idatzi zuen, pentsamendua deitzen ahal bazaio honi, geroago erabiltzeko **asmoarekin**, beharrezkoa izatera. Jon Alonso

Erasorako **asmoarekin**, txalupa irauli egingo da eta arrantzale batzuek atera egin beharko dituzte bai zalduna bai ezkutaria.->04GarL01¬4<-Gutxika ipuin bilduma baten zirriborroa osatzea lortu, eta Joseba Jaka sarira aurkeztu zuen, forma eman eta bukatzeko **asmoarekin**. Patxi Ezkiaga

Eta auzi hori dela eta, Bizi Artifiziala deritzan zientzia helburu batekin eratu zen, horrela biziaren zientzia egon ez dadin adibide bakar horri lotuta, hots, biologia orokorra edo unibertsala eraikitzeko **asmoarekin**. Askoren artean

Julen une batez urrundu zen, alboan bizi zen baserritar batekin hitz egiteko **asmoarekin**. Fernando Morillo

Eta helburu hori lortzeko **asmoarekin** ekin nion, bada, defentsa-lan nekosoari. Karlos Linazasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asmoarekin abiatu (4); **asmoarekin ari** (3); **asmoarekin aurrera** (5); **asmoarekin bat** (3); **asmoarekin egin** (7); **asmoarekin egiten** (3); **asmoarekin ekin** (4); **asmoarekin etorri** (3); **asmoarekin hartu** (4); **asmoarekin hasi** (3); **asmoarekin irten** (6); **asmoarekin jaio** (3); **asmoarekin joan** (8); **asmoarekin joango da** (3); **asmoarekin kantxaratu** (4); **asmoarekin sortu zen** (3)

bilatzeko asmoarekin (4); **biltzeko asmoarekin** (5); **botatzeko asmoarekin** (3); **bukatzeko asmoarekin** (6); **emateko asmoarekin** (14); **eragiteko asmoarekin** (3); **eraikitzeko asmoarekin** (4); **eramateko asmoarekin** (3); **eskaintzeko asmoarekin** (4); **ezagutarazteko asmoarekin** (3); **ezartzeko asmoarekin** (3); **gozatzeko asmoarekin** (3); **hartzeko asmoarekin** (4); **heltzeko asmoarekin** (4); **hobetzeko asmoarekin** (5); **idazteko asmoarekin** (3); **irabazteko asmoarekin** (4); **iristeko asmoarekin** (4); **itotzeko asmoarekin** (3); **itzultzeko asmoarekin** (4); **izateko asmoarekin** (9); **jarraitzeko asmoarekin** (5); **jartzeko asmoarekin** (3); **jasoaldi egiteko asmoarekin** (3); **joateko asmoarekin** (8); **lan egiteko asmoarekin** (3); **luzatzeko asmoarekin** (3); **osatzeko asmoarekin** (4); **sartzeko asmoarekin** (3); **suntsitzeko asmoarekin** (3); **sustatzeko asmoarekin** (6); **zabaltzeko asmoarekin** (3); **zigortzeko asmoarekin** (3)

---

asmodun 1 *izond* asmoa duena.

Haien ekintza zuzentzen, inongo enpresa edo interes pribatu eta irabazi **asmodun** presio talderik gabe. Berria - Euskal Herria

Sanferminetan hogei toxikazio izan ziren, eta ikerketa guztien arabera, Euskal Jai gaztetxean egiten duten irabazi-**asmodun** legez kanpoko ostalaritza izan zitekeen toxikazio kasuen eragilea. Berria - Euskal Herria

Episkopaldarren erlijioan hezi omen zuten, baina laster utzi omen zuen "bertan behera sinesmen ofiziala" -jainkotasun pertsonal edo **asmoduna**- Jainkoaren ideia "zientifikoago" baten alde. Xabier Olarra

2 *irabazi asmodun*

Haien ekintza zuzentzen, inongo enpresa edo interes pribatu eta **irabazi asmodun** presio talderik gabe Berria - Euskal Herria

Sanferminetan hogei toxikazio izan ziren, eta ikerketa guztien arabera, Euskal Jai gaztetxean egiten duten **irabazi** - **asmodun** legez kanpoko ostalaritza izan zitekeen toxikazio kasuen eragilea, Berria - Euskal Herria

---

asmogabe *izond* asmorik ez duena.

Gaurko jendeok zorionez dakigunaren arabera, izurria Naturaren halabeharrezko agerpen bat besterik ez da, haren aldrebeskeria **asmogabearena**. Xabier Olarra

---

asmotan 1 (-tzeko edo -rako atzizkien eskuinean) *adlag* zerbaiten asmoarekin. ik **asmoz**; **asmoan**; **asmoarekin**.

Aurreko aldian legez, Fionnek eskua luzatu zuen aita handik ateratzeko **asmotan**. Joanes Urkixo

Errealitate-inpresioaren arazoen ikuspegiak ere, ordea, ez baita helburu kritiko horretarako **asmotan** garatu, gehiegizko balioa atxikitzen dio inpresio horrek eragiten duen "engainu" parteari. Josu Zabaleta

Baina, hala ere, inoiz ez dugu jakingo krokodiloa galdutako erlojua berreskuratzeko **asmotan** ote zebilen edo, aldiz, barruan zeraman erlojua berriro martxan hasi zitzaiola pentsatuz, lagun bezala ote zihoan Peterren atzetik. Julen Gabiria

Gainera, urteak zeramatzan dantzaldirik edo festarik huts egin gabe, eta ez zuen ematen erretiratzeko **asmotan** zebilenik: emanaldietarako txaketak eta gorbatak lehen egunean bezain txukun jarraitzen zuten bere entsegu gelan. Bernardo Atxaga

Beldurrak eta pozak aldi berean hartu zuten Anshel, herritar guztiak engainatzeko **asmotan** dabilen pertsona bat bezala. Koro Navarro

Atsegina izateko **asmotan** nentorren, eta esatera: "Ene, Stella, hau bai etxe dotorea, zein zoragarria den...". Xabier Paya

Hilabete bat lehenago, auzitegia Baionara aldaratua izan zen eta, orain, zuzendaritzarekin gauza bera egiteko **asmotan** ziren. Elena Touyarou

Nire negoziotxoa zabaltzeko **asmotan** nabilen eta bazauzkanat epe laburrean handitzeko asmoak ere. Urtzi Urrutikoeetxea

Berriro Bartzelonara itzuli eta falta nuen azken maila hori ateratzeko **asmotan** ekin nion uda hari. Joxerra Garzia

Donibane Lohizuneko Gambetta kalera joan ginen bazkaltzeko **asmotan**. Joxean Agirre

Taberna nahikoa bete da honezkero, lanetik irtendako batzuek aterpe hartu dute berton, zerbezaren bat edo halako zer edo zer eztarriratzeko **asmotan**. Paddy Rekalde

Jiratu eta pentsatu berria zuen hori Alkimistari esateko **asmotan** zebilen, baina haren beldur zen. Xabier Aranburu

Eguerdi aldera agertu zen, bazkaltzeko **asmotan**. Edorta Jimenez

Afalostean, kopari uko egin eta bi kafe hartu ondoren, solasaldia beheraka zihoala ikusirik, erretorea erretiratu zenean hartu nuen nik ere kotxea, etxerako **asmotan**. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (aditz jokatu gabearen eskuinean)

Leku askotara emakumea naizelako joan naiz, partaidetza normaltzeko lehen urratsak egiteagatik, eta harmonia bilatu **asmotan** itxura eta edukiaren artean. Ana Urkiza

Hona zergatik: literatur tradizio zabalak, Shakespeareren Julio Zesar-etik Traidorearen eta heroiaren gaia izeneko ipuinera doanak, erakusten du hiltzera doana hiltzeko, lehenik inork gaztigatu behar diola hilgaiari bere etsaiak bera hil **asmotan** dabiltzala. Jon Alonso

Bakunatu egiten gintuela esaten zuen Lutxok, alproja hark, animatu **asmotan** zer edo zer esan behar zuelako. Lander Garro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **afaltzeko asmotan** (3); **aldatzeko asmotan** (3); **alde egiteko asmotan** (7)
>
> **asmotan abiatu** (4); **asmotan ala** (3); **asmotan da** (6); **asmotan dabil** (4); **asmotan dabilela** (3); **asmotan dabiltzala** (3); **asmotan daude** (3); **asmotan dela** (5); **asmotan dira** (3); **asmotan edo** (8); **asmotan etorri** (9); **asmotan naiz** (3); **asmotan ote** (5); **asmotan zebilen** (5); **asmotan zegoen** (3); **asmotan zen** (3); **asmotan zeudela** (3); **asmotan zeuden** (3); **asmotan zirela** (3); **asmotan ziren** (4)
>
> **ateratzeko asmotan** (7); **aurkitzeko asmotan** (3); **bake asmotan** (3); **bazkaltzeko asmotan** (3); **berreskuratzeko asmotan** (5); **biltzeko asmotan** (3); **bizitzeko asmotan** (3); **edateko asmotan** (3); **egiteko asmotan altxatu** (3); **egiteko asmotan zebilela** (3); **erabiltzeko asmotan** (4); **erakusteko asmotan** (4); **eramateko asmotan** (5); **eraso egiteko asmotan** (3); **erosteko asmotan** (4); **erregea hiltzeko asmotan** (7); **gelditzeko asmotan** (3); **geratzeko asmotan** (3); **hartzeko asmotan** (13); **heltzeko asmotan** (3); **hiltzeko asmotan ibili** (3); **hiltzeko asmotan zebiltzala** (3); **hiltzeko asmotan zebiltzan** (4); **hitz egiteko asmotan** (5); **hobetzeko asmotan** (3); **hondatzeko asmotan** (3)
>
> **idazteko asmotan** (4); **igarotzeko asmotan** (3); **ihes egiteko asmotan** (6); **ikasteko asmotan** (9); **ikusteko asmotan** (4); **irakurtzeko asmotan** (4); **itzultzeko asmotan** (10); **ixteko asmotan** (3); **izateko asmotan** (8); **jakiteko asmotan** (3); **jarraitzeko asmotan** (3); **jartzeko asmotan** (9); **jasotzeko asmotan** (3); **jateko asmotan** (4); **joateko asmotan** (19); **laguntzeko asmotan** (5); **ligatzeko asmotan** (3); **lortzeko asmotan** (4); **osatzeko asmotan** (3); **saltzeko asmotan** (5); **sartzeko asmotan** (7); **segitzeko asmotan** (3); **uzteko asmotan** (3); **zabaltzeko asmotan** (3); **zer asmotan** (3)

---

asmotsu 1 *izond* amarrutsua, maltzurra.

Estratagema **asmotsu** hari esker, hiru moldez hilko zen, aldi berean, presoa: egarriz, gosez eta eguzkipean kiskalita. Joxan Elosegi

Hasieran gauza serioa eta sakona iruditzen zitzaizkionak, eskujokoak baizik ez zirela konbentzitu zen, eskujoko **asmotsuak** batzuetan, arruntak beste batzuetan, baina mamirik gabeak betiere -ez mami metafisikorik ez enpirikorik. Josu Zabaleta

Iraganean, bere ile bikain nahasia luze eraman izan zuen; eta izaten ziren orobat makillajea, bitxi handi eta ikusgarriak, eraztunak hatz guztietan eta arropa ezohikoez bere burua era **asmotsu** batez apaintzeko erraztasuna. Oskar Arana

Zain, goi-gizarteko bisitari **asmotsuren** bat noiz etorriko ote zaion. Jose Morales

Mujik errusiarrak azkarrak eta **asmotsuak** dira: berehala ohartu ziren nagusia oso arduratsua zela eta gauza asko egin nahi zituela, baina ez zuela asmatzen bere xedeak gauzatzeko bidea. Jose Morales

Lucy nik uste izan nuen baino askoz **asmotsuagoa** zen, eta han haserretan kea zeriola egon ordez, pentsatzen eta planak egiten ari zen, bere adimen aski zorrotza erabiltzen gure asmo guztiak azpikoz gora jarri eta bere patua bere esku utziko zuen amarru bat bilbatzeko. Oskar Arana

Esaldiak, harritu ordez, erredakzioan genuen kazetaririk **asmotsuena** ekarri zidan gogora: gutuna ezin zitekeen Danelena beste inorena izan; eguneroko bizitzaren asperduratik ihes egiteko hark erakusten zuen lotsa gutxiko ganoraren beste asmazio bat zen, inondik ere, gutun hura. Anjel Lertxundi

Kontakizuna entzun zuenean, pinta erdi bat ordaindu zion Farringtoni, inoiz entzun zuen gauzarik **asmotsuena** zela esanez. Irene Aldasoro

Haien ustez, metodo hau **asmotsuena** eta hoberena balitz bezalakoa da, eta horregatik askok hor egiazko froga ikusi dute. Xabier Kintana

2 asmamen handikoa. ik **burutsu**.

Mujik errusiarrak azkarrak eta **asmotsuak** dira: berehala ohartu ziren nagusia oso arduratsua zela eta gauza asko egin nahi zituela, baina ez zuela asmatzen bere xedeak gauzatzeko bidea. saiatuaren saiatuaz, **asmotsu** bilakatzen da burua. Jose Morales

---

asmotu, asmo(tu), asmotzen du *ad* asmoa izan.

Hartan bilduta, etxetik ihes egitea **asmotu** nuen. Koldo Izagirre

---

asmoz 1 (-tzeko edo -rako atzizkien eskuinean) *adlag* zerbaiten asmoarekin. ik **asmotan**; **asmoan**; **asmoarekin**.

Nire buruari barkatzeko **asmoz**, halabeharra jartzen badut zoritxarraren zurigarri, halabeharraren mende jartzen naiz. Josu Zabaleta

Jakina, pedagogiaren arabera aritu behar izan du Txillardegik, kontakizuna ahalik eta argien taxutuz, egia egokiro hedatzeko **asmoz**. Markos Zapiain

Liburutegiraino eramaten du kutxa astuna, han gutunak begiratzeko **asmoz**. Oskar Arana

Lanean hasi eta urtebetera, Euskal Filologian matrikulatu nintzen, ez hizkuntzaz gehiago ikasteko **asmoz**, baina bai literaturaz. Ana Urkiza

Burtsa hau Mattin Megadendak, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren eta Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin 2000. urtean sortua izan da, iparraldeko gazteak euskaraz idaztera lehiatzeko **asmoz**, epaimahaikideak Itxaro Borda, Jon Casenave eta Piarres Aintziart izanik. Ramuntxo Etxeberri

Irakurtzeko **asmoz** datorrela, ez duela besterik egiteko asmorik hilabete oso batean gutxienez, eta ea Argosen lekua zein izango den. Hasier Etxeberria

Orduan Sara, atsekabez beterik, negarrez hasi eta gora igo zen, aitaren gelara, bere burua urkatzeko **asmoz**. Jose Antonio Mujika

Erredakzioan beharrezko dokumentazioa hartuta joan nintzen etxera, elkarrizketa lasai prestatzeko **asmoz**. Jasone Osoro

-Snapek ezin du frogatu zu izan zarela -esan zion Ronek Harryri, lasaitzeko **asmoz**. Iñaki Mendiguren

Belaun-joko bizian urrundu ginen pendizean gora, mendizerri haiek sua pizten zutela ardi izterra jateko **asmoz**. Koldo Izagirre

Isilka-isilka, urek goraka egin zuten, eta oinak ere ukitu zizkieten; eta, guztiz irentsita geratu arteko denbora pasatzeko **asmoz**, lakuan ikus zitekeen gauza bakarrari begira geratu zen. Julen Gabiria

Gero, itxura ahal zuen guztia aldatu eta hegoaldera joan zen Vienara oinez iristeko **asmoz**. Ramon Etxezarreta

Gogoan daukat galtzarbeetatik hartu ninduela norbaitek, jasotzeko **asmoz**, eta berriro utzi ninduela lurrean. Agurtzane Juanena

Emeki askatu nintzen handik joateko **asmoz**. Eduardo Matauko

Kristalera hurbildu du aurpegia atzean entzuten duen ibaia ikusteko **asmoz**, baina ilun beltzak eragotzi dio. Pello Lizarralde

Alabaina, itasoan, ontzikoek arropa guztiak kendu eta zirtzilez jantzi ninditean, oraintxe ikusten nauan gisan, esklabutzat erabiltzeko **asmoz**. Juan Kruz Igerabide

"Baserri batera joan omen zan Lazkao Txiki bein batean, bei bat erosteko **asmoz**. Gotzon Garate

Azken aldi bat oraindik bazter guztietara begiratu nuen, Mathias aurkitzeko **asmoz**. Daniel Landart

Ematen dik deabruak hartua aritzen haizela, jendea hire mailara beheratzeko **asmoz**. Patxi Zubizarreta

Mexikon zela, Cardenas presidentearekin ere elkartu zen, ahuntz batzuk eta horrelako patari galduren bat besterik ez zuen uhartea erosteko **asmoz**. Iñigo Aranbarri

Horregatik harrapatu zuen ustekabean, bisitarako **asmoz** agertu eta gaixo zegoela esan ziotenean. Xabier Mendiguren Elizegi

Hemendik gutxira lanetik irten eta Plaza Berrirantz abiatuko da, aparkalekura, bere BMW beltzean etxeratzeko **asmoz**. Sonia Gonzalez

2 (aditz jokatu gabearen eskuinean)

Mikel aulki batean jesarri zen, bere burua besarkatuz berora itzuli **asmoz**. Unai Iturriaga

Jendearen oihu eta algarek eten dute momentua, eta bikoteak eztandaren iturria bilatu **asmoz** begiratu du plazara. Eider Rodriguez

-Borgesek bezala hitz egin duzu -bota nion, lausengatu **asmoz**. Patxi Ezkiaga

3 ***asmoz eta jakitez***

PFR: Ekin eta jarrai, **asmoz eta jakitez**, jakina. Karlos Linazasoro

Arriskuak, beraz, badaude, eta **asmoz eta jakitez** jokatzea dagokigu. Koldo Zuazo

Asmoz eta jakitez irabaziko dugu, nolabait irabaztekotan, uniformatzeko joeraren eta identitateen arteko lehia; baina ez gurea gordez besteena ukatzeko, gurea zainduz besteena ulertzeko baino. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aberasteko asmoz (3); **abian jartzeko asmoz** (4); **abiatzeko asmoz** (3); **adierazteko asmoz** (7); **adosteko asmoz** (3); **agurtzeko asmoz** (5); **ahazteko asmoz** (3); **ahultzeko asmoz** (4); **akordioa lortzeko asmoz** (4); **aldarrikatzeko asmoz** (6); **aldatzeko asmoz** (8); **alde egiteko asmoz** (3); **amaitzeko asmoz** (3); **animatzeko asmoz** (4); **aprobetxatzeko asmoz** (3); **arautzeko asmoz** (4); **arazoak konpontzeko asmoz** (3); **argitaratzeko asmoz** (3); **argitzeko asmoz** (11); **arintzeko asmoz** (3); **aritzeko asmoz** (3); **asetzeko asmoz** (3); **askatzeko asmoz** (3)

asmoz abiatu (4); **asmoz antolatu** (7); **asmoz ari** (4); **asmoz atera** (5); **asmoz aurkeztu** (4); **asmoz baizik** (4); **asmoz bilera** (3); **asmoz edo** (9); **asmoz edurne elizondo** (3); **asmoz egin zuen** (3); **asmoz egina** (5); **asmoz eginak** (4); **asmoz egindako** (12); **asmoz egingo** (3); **asmoz eginiko** (3); **asmoz ekin zioten** (3); **asmoz ere** (3); **asmoz erredakzioa** (10); **asmoz eta jakitez** (7); **asmoz etorri** (8); **asmoz etorria** (3); **asmoz fundazioak** (5); **asmoz hartu** (4); **asmoz hasi** (3); **asmoz heldu** (3); **asmoz irten** (3); **asmoz itzuli** (3); **asmoz iñigo bilbao** (3); **asmoz jo** (3); **asmoz joan ziren** (5); **asmoz kantxaratuko** (4); **asmoz sortu zen** (7); **asmoz sortu ziren** (3); **asmoz zelairatu** (5); **asmoz zelairatuko da** (3); **asmoz zelairatuko dira** (5)

atxilotzeko asmoz (3); **aukera emateko asmoz** (3); **aurkezteko asmoz** (4); **aurre egiteko asmoz** (18); **aurrezteko asmoz** (3); **azaltzeko asmoz** (15); **aztertu asmoz** (3); **baliatzeko asmoz** (6); **banatzeko asmoz** (3); **bateratzeko asmoz** (4); **batzeko asmoz** (5); **bereganatzeko asmoz** (6); **bermatzeko asmoz** (4); **berreskuratzeko asmoz** (14); **berri emateko asmoz** (3); **berritzeko asmoz** (4); **besarkatzeko asmoz** (3); **beste egiteko asmoz** (3); **betetzeko asmoz** (15); **bideratzeko asmoz** (8); **bihurtzeko asmoz** (4); **bilatu asmoz** (6); **biltzeko asmoz** (18); **bizitzeko asmoz** (4); **bizkortzeko asmoz** (3); **borrokatzeko asmoz** (5); **botatzeko asmoz** (3); **bukatzeko asmoz** (4); **bultzada emateko asmoz** (4); **bultzatzeko asmoz** (17); **defendatzeko asmoz** (5); **den aztertzeko asmoz** (3); **desegiteko asmoz** (4); **egin asmoz** (7); **egiteko asmoz joan** (3); **egoera konpontzeko asmoz** (4); **ekiditeko asmoz** (9); **ekiteko asmoz** (3); **elkarlana sustatzeko asmoz** (3); **eman asmoz** (7); **erabaki asmoz** (3); **erabiltzeko asmoz** (8); **eragiteko asmoz** (4); **eragozteko asmoz** (6); **eraikitzeko asmoz** (6); **erakusteko asmoz** (12); **eramateko asmoz** (7); **erantzuteko asmoz** (10); **erasotzeko asmoz** (4); **erosteko asmoz** (5); **errazteko asmoz** (5); **erraztu asmoz** (3); **errepikatzeko asmoz** (4); **errespetua sustatzeko asmoz** (3); **eskaintzeko asmoz** (8); **eskatzeko asmoz** (8); **eskertzeko asmoz** (5); **esku uzteko asmoz** (3); **eskubideak babesteko asmoz** (3); **eskuratzeko asmoz** (11); **eteteko asmoz** (4); **eusko ikaskuntzaren asmoz** (3); **eusteko asmoz** (7); **ezagutarazteko asmoz** (5); **ezagutzeko asmoz** (15); **ezagutzera emateko asmoz** (3); **ezartzeko asmoz** (4); **eztabaidatzeko asmoz bildu** (3)

finkatzeko asmoz (5); **gainditzeko asmoz** (5); **gaitzesteko asmoz** (3); **garbitzeko asmoz** (4); **gatazka konpontzeko asmoz** (3); **gauzatzeko asmoz** (3); **geldiarazteko asmoz** (6); **gelditzeko asmoz** (6); **geratzeko asmoz** (5); **gibel asmoz** (3); **giroa baretzeko asmoz** (5); **gogoratzeko asmoz** (5); **gutxitzeko asmoz** (6); **handik ateratzeko asmoz** (4); **handitzeko asmoz** (8); **harrapatzeko asmoz** (6); **hasteko asmoz** (4); **hausteko asmoz** (4); **hedatzeko asmoz** (3); **helaraztzeko asmoz** (5); **heltzeko asmoz** (7); **hiltzeko asmoz** (11); **hitz egiteko asmoz** (4); **hori lortzeko asmoz** (3); **idazteko asmoz** (3); **identifikatzeko asmoz** (3); **igarotzeko asmoz** (5); **ihes egiteko asmoz** (6); **ikasteko asmoz** (4); **ikertzeko asmoz** (3); **ikusi asmoz** (3); **ikusteko asmoz** (19); **indartu asmoz** (4); **indartzeko asmoz** (18); **irabazi asmoz** (3); **irakurtzeko asmoz** (7); **iraultzeko asmoz** (3); **iristeko asmoz** (9); **irtenbidea bilatzeko asmoz** (6); **irteteko asmoz** (3); **irudikatzeko asmoz** (3); **isiltzeko asmoz** (3); **itzultzeko asmoz** (9); **izateko asmoz** (31); **jabetzeko asmoz** (3); **jakiteko asmoz** (15); **janzteko asmoz** (4); **jarraipena emateko asmoz** (3); **jarraitzeko asmoz** (15); **jasotzeko asmoz** (13); **jateko asmoz** (6); **joateko asmoz** (14); **jokatzeko asmoz** (3); **jotzeko asmoz** (4)

kalitatea hobetzeko asmoz (3); **kentzeko asmoz** (10); **konponbidea bilatzeko asmoz** (4); **kontrolatzeko asmoz** (4); **laguntza emateko asmoz** (3); **laguntzeko asmoz** (17); **lapurtzeko asmoz** (3); **lasaitzeko asmoz** (4); **lortu asmoz** (8); **lotzeko asmoz** (4); **luzatzeko asmoz** (4); **murrizteko asmoz** (9); **nabarmentzeko asmoz** (3); **omentzeko asmoz** (5); **ordaina irabazteko asmoz** (3); **ordaintzeko asmoz** (4); **osatzeko asmoz** (7); **ospatzeko asmoz** (4); **oztopatzeko asmoz** (5); **parte hartzeko asmoz** (10); **pasatzeko asmoz** (5); **prestatzeko asmoz** (8); **saihesteko asmoz** (15); **sakontzeko asmoz** (5); **salatzeko asmoz** (15); **salbatzeko asmoz** (5); **saltzeko asmoz** (4); **sartzeko asmoz** (16); **segitzeko asmoz** (3); **sendotzeko asmoz** (5); **sinatzeko asmoz** (4); **sortzeko asmoz** (15); **suntsitzeko asmoz** (7); **suspertzeko asmoz** (4); **sustatu asmoz** (4); **topatzeko asmoz** (3); **txikitzeko asmoz** (3); **ulertzeko asmoz** (3); **urrundu asmoz** (3); **zabaltzeko asmoz** (13); **zapuzteko asmoz** (3); **zehazteko asmoz** (6); **zer nolako asmoz** (3); **zerbait hartzeko asmoz** (3); **ziren bazkaltzeko asmoz** (3); **zuzentzeko asmoz** (6)

---

asmu *iz ipar* asmoa.

Hoinbertze **asmu**, kontzeptu baliatzen dira su horren bidez. Herria

Erran du alabainan Mendebaleko **asmu** eta bizi moldeak biziki hobeak direla islamist herrietakoak baino. Herria

Elkarteak beharko du lan egin xede edo **asmu** horri buruz. Herria

Dena dela Jainko Onak har dezala bakean, bere lagunen erdian, Jakes Mestelan adiskidea eta haien **asmu** ederrek izan dezatela miresle eta jarraitzale gaurko gazteen artean! Herria

---

asmutsu *izond* asmotsua.

Ideia txoroa baina **asmutsua** zen: argazkietako SSetako ofiziala Das Schwarze Korps-en ale haietakoren batean ager zitekeen. Alberto Ladron Arana

---

asnas *iz* arnasa.

Garai batean, sukaldean edo jendea biltzen zen lekuan, zakurren bat han izanen zen urruti gabe, eta **asnasa** mozteko moduko putz ixilen bat inork botzen bazuen, beti zakurrari kulpa: [...]. Patziku Perurena

---

asnasestuka *adlag* arnasestuka.

Neskak intziri bat egin du, intziri ito bat, azkenik patu biologikoa betetzera doan emakumearen mina eta plazerra batzen dituena, eta orduan gizonak barneratzen dio bultzada indartsu bakar batez, gehiago zabaltzen dizkio hankak, joan-etorri sakoneko mugimendu bati ekin eta, azkenik, plazerrez **asnasestuka**, isuri bizigai epela botatzen dio erraietan, deus ez dira ez bata ez bestea isuri bizigai hori gabe. Hasier Etxeberria

asonante *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)* **1** *iz* errimez mintzatuz, bokalen arteko hoskidetasuna duena.

Ez zaitezela arduratu kontsonante edo **asonante** diren. ETC-literatura, saiakera

Errima hoskidea eta **asonantea** beldurrik gabe tartekatzen dira, eta bada lerroen barneko hoskidetasunik ere: "Abesti bat garbia nola ur berria / Eta txuria nola behialako ogia / Jaiotzaren gainetik dakikeena hegan / Artzainek ikusteko ongi den maneran". ETC-prentsa

(--...) Behin hitzen jabe zarenean, ez zaitezela arduratu kontsonante edo **asonante** diren beren artean. ETC-prentsa

30 Paralelismorik aurkitzeko paradarik izan ez dugun arren, oinarrian gaztelerazko hoskidetasun **asonantea** eta neurri berdina duten "boda (s) " eta "sopa (s) " hitzen oihartzuna antzematen dela pentsa liteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***errima asonante*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Hori bai: gaztelaniazko **errima asonantearen** tokian euskarazko kontsonantea erabili du, "euskaraz **errima asonanteak** ez baitu zentzurik". ETC-prentsa

Ez dago ahapaldietan banatuta, eta bertsoak tiradetan elkartzen dira, hau da **errima asonante** bera duten bertso sailetan. ETC-entziklopedia

---

asonantzia *iz* errimaz mintzatuz, bokalak bat datozenak azken azentodunetik aurrera.

Testu poetikoak oso dokumentu baliotsuak dira ahoskera ezagutu ahal izateko: monumentu hauek hainbat punturi buruzko argitasunak ematen dizkigute, bertsotan jartzeko sistema, silaben kopuruan edo kantitatean edota hotsen adostasunean (aliterazioan, **asonantzian**, erriman) oinarritua dagoen eta abar. Isabel Arrigain

Antzez baliatu haiz errimaz, aliterazioaz, **asonantziaz**, jakinduria ederreko erretorikaren artifizioez, neurrien aldikatze zuhurraz. Juan Garzia

Literatur molde eta forma-ezaugarri aski ezberdinetako testuak dira: lege-testuen ondoan, testamentuak, otoitzak, gutunak eta aholku espiritualak ditugu; batzuk prosazkoak dira, errimaz eta **asonantziez** eraturiko pasarteak tartean dituztela; beste batzuk, berriz, poetikoak. Askoren artean

---

asots **1** *iz* zarata, azantza.

Urrundu zen motorraren **asotsa**. Aurelia Arkotxa

Noizetik noizerat gelditzen dira, hango edo hemengo **asots**, zarata edo surmurraren etorkia egiaztatzearren. Aingeru Epaltza

Inoiz ez bezalako mugimendu, **asots** eta joan-etorriak ikusi zituzten urte haietan Iruñeko karrikek. Aingeru Epaltza

Horrela egin nuen kilometroa, zalaparta eta **asots** haren tartean, nahiz antolatzaileak saiatzen ziren musikarekin orro eta arrantzak isilarazten, hori ere esan behar baita. Pello Salaburu

Gorrotagarriak zaizkio **asots** eta zalaparta haiek zeinahi presori. Xabier Montoia

Jackie erakutsi zuen lagunak ikusteko gisa, eta nehork salbu koilareak kikeren hegiak kuskatzean zegien **asotsak** hautsi ez zuen isiltasun unearen ondotik segitu zuen. Itxaro Borda

Ximurrak eztula egin zuen **asots** handiz eta eskuaz uxatu harengana ez baizik leiho irekira zihoan kea. Aingeru Epaltza

Martizen xorroxtarriaren **asots** kolpekatua zurean zizelkatu opotsean hezetzeko sartzen oihartzen zen, floka-floka, dailu zein labanaren ezpain eskainietan xirrixarra, ezti eta eraginkor suertatzearren. Itxaro Borda

Haizeak ekartzen dit, tarteka, **asots** xume bakan bat, urrutitik heldu dena. Monika Etxebarria

Asots ozen batek gaztigatu zigun xigorgailuak burutua zuela bere lana. Aingeru Epaltza

Kamioitik mitraileta **asots** nasaiak ozen zetozen eta partida zuena irudiz, tiratzaile bakartia, tiratzetik gelditu zen, hila menturaz. Itxaro Borda

Asots apal nahastezinak adierazi zidan idatzitakoa inprimatzen ari zela. Aingeru Epaltza

Egunkarietako errotatiba zaharrak galerada inprimatu berria bertzeekin pilatzerakoan gisako **asotsa** ateratzen zuen, zapla!, ukaldi bakoitzean. Aingeru Epaltza

Kamioitik mitraileta **asots** nasaiak ozen zetozen eta partida zuena irudiz, tiratzaile bakartia, tiratzetik gelditu zen, hila menturaz. Itxaro Borda

Bildotsak auhenez ari ziren, zein besteak baino gorago, ozenago, ankerrago, jendeen solasen harramantzak, irri algarak eta autoen **asotsak** estaliz. Itxaro Borda

Gelditzen zirelarikan sorgortuak bezala uzten gintuzten, munduari norbaitek **asotsak** oro kenduak zizkiola ematen zuen. Koldo Izagirre

2 (hitz elkartuetan)

Zorien ziztuak, hegadak arboletan, euri tantak erortzen hosto mugituetarik, auto **asotsik** ia ez. Kamioitik mitraileta **asots** nasaiak ozen zetozen eta partida zuena irudiz, tiratzaile bakartia, tiratzetik gelditu zen, hila menturaz. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asotsik ez** (3)

---

asoziagarri *izond* asozia daitekeena.

Izan ere, hautemapenak asoziatzeko ahalmena berehala bagenu, orduan erabat indeterminatua eta beharbadakoa izaten iraungo luke ea hautemapenak gainera **asoziagarriak** ote diren. Ibon Uribarri

Beraz, oinarri objektibo batek izan behar du, h. d., irudimenaren lege enpiriko ororen aurretik a priori aditzen den oinarria, eta bertan funtsatzen da agerpen orotara luzatzen den legearen ahalgarritasuna, baita beharrezkotasuna ere, hots, agerpenak osoro beren baitan **asoziagarriak** diren eta birprodukzioan elkarlotura osoaren erregela orokorrei menperatzen zaizkien sentsuen datu gisa ulertzeko legearena Ibon Uribarri

---

asozial *izond* gizartean integratzen ez dena.

Asoziala zen bera, sei hilabete zituenean; eta zurrundu egiten zen amaren besoetan garai hartan; halako erreakzioak ere -autistengan normalak- argiezinak iruditzen zaizkio gogamenaren teoriaren arabera. Xabier Olarra

Garai berean, Konrad Lorenz-ek tumor gaizto bat erauztearekin konparatzen zuen beren molde kaskarrarengatik **asozialak** ziren gizakiak paretik kentzea; errazago eta arrisku gutxiagoko zeritzon, hain zuzen, bigarren kasuari lehenbizikoari baino. Juan Garzia

Hirukia gorria zen preso politikoen kasuan, berdea preso arruntenean, bioleta kontzientzia-objektoreentzat, beltza **"asozialentzat"**, arrosa homosexualentzat. Urtzi Urrutikoetxea

---

asoziatibo *izond* asoziazioarena, asoziazioari dagokiona.

Kristinaren azken esperimentu **asoziatiboa**. Aingeru Epaltza

Forma baten sortzea baino lehen, beti, hizkuntzaren altxorrean ezarritako materialen konparazio oharkabea gertatu behar da (altxor horretan, forma sortzaileak erlazio sintagmatikoen eta **asoziatiboen** arabera daude antolatuak. Isabel Arrigain

---

asoziatu, asozia(tu), asoziatzen *(ETCn **594** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **elkartu**, **lotu**, **erlazionatu** eta **kidetu** agertzen dira)* da/du *ad* asoziazioa egin, lotu.

Erlatibismoaren kritika eta absolutuaren galdea Renanen filosofiaz jantzi edo bermatu, edo soil **asoziatu**, nahi izatea, edozein txunditzekoa da, haren ideia pittin bat edukiz gero. Joxe Azurmendi

1868ko "iraultzaren" ondoren (Isabel II.aren destronazioa, Alfontso XII), adierazpen askatasunarekin, positibismoa liberalismoari **asoziatua** agertu da, idealismoa eta espiritualismoa erregimen zaharraren aliatutzat jotzen ziren bitartean. Joxe Azurmendi

Planak ez du eskumen gehiago nahi, estatu **asoziatua** baizik, Konstituzioak aitortzen ez dion subiranotasuna onartzea, alegia. Berria - Euskal Herria

Heinek, Loreleiren kanta famatuaz gain, "Der Rabbi von Bacherach" narrazioa dauka hain zuzen, Erdi Aroko juduen gorroto eta pogromen istorio beltzenak hiri ilun horrekin **asoziatuz**. Koldo Izagirre

Biak beti **asoziatzeak** ez dakar biak ekibokoz jostea baino. Joxe Azurmendi

"Iraultza", gure eta gure ondorengo belaunaldiarentzat, borroka proletario eta sozialistarekin **asoziatzen** dugun kontzeptua da. Joxe Azurmendi

Hautemapenak **asoziatzeko** ahalmena berehala bagenu, orduan erabat indeterminatua eta beharbadakoa izaten iraungo luke ea hautemapenak gainera asoziagarriak ote diren. Ibon Uribarri

---

asoziatze *iz* asoziazioa egitea.

Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendigurenek nabarmendu du Frantziako Hezkuntza Nazionalarekin **asoziatze**-kontratua duela Seaskak, eta haren programak irakasten dituela, euskara eta euskal kulturaz gain. Berria - Euskal Herria

---

asoziazio **1** *iz* zenbait gizabanako batzea helburu jakin baterako.

Erregelen arabera osatutako birprodukzioaren oinarri subjektibo eta enpirikoari errepresentazioen **asoziazioa** deitzen zaio. Ibon Uribarri

Hiru edo lau lagun kalean elkarrekin ibiltzea **asoziazio** ilegala bihurtu zen. Joseba Sarrionandia

"Ezinezkoa da bi **asoziazioen** artean prezio akordio batera iristea; legez kanpo dago", esan du Unespako prentsa buruak, eta hori aseguru konpainien eta garabi enpresen artean negoziatu beharrekoa dela argitu dio ABEACi. Berria - Ekonomia

2 bi ideia edo kontzepturen artean mentalki egiten den lotura.

Asoziazio bat egin nuen bat-batean. Bernardo Atxaga

Errima errebesaren kontura, antz fonikoak ideien **asoziazioa** ekartzen du berekin, eta egilea inoizka argumentu logikoak -sinpleak batzuetan, korapilatsuak beste batzuetan- eraiki beharrean dago, igorri nahi digun mezua ulertuko badugu. Iñaki Arranz

Konexio-gurutzatzeen ugaritasun hori garrantzitsua da oroimenari, **asoziazioari** eta pentsamendu abstraktuari dagokienez. Irene Aldasoro

Asoziazioaren kausa subjektiboetan funtsatzen den eta berezko kidetasun baten ikuskeratzat jotzen den uste osoaren itxurak ezin du orekatu halako urrats ausartei buruz arrazoiz azaldu behar den zalantza. Ibon Uribarri

Goragoko mailetan gertatzen da integrazioa, eta hala elkartzen dira koloreak eta oroimena, espero dena, **asoziazioak** eta desirak, oihartzunezko eta esanahizko mundu bat sortzeko gutariko bakoitzarentzat. Xabier Olarra

Gauza ezagunen koloreez galdetuz gero, ez zuen arazorik koloreen arteko **asoziazioak** ongi egin edo haien izenak emateko. Xabier Olarra

Espontaneitatea falta zuen, eta, elkarrizketetan bera hasten ez bazen ere, arin eta egoki erantzuten zuen nik hitz egindakoan, nahiz eta ustekabeko hitzek arreta hartzen zioten batzuetan, eta **asoziazio** tangentzialei eta kantu eta bertso zatiei bide ematen zien. Xabier Olarra

Ikasitakoa eta bereziki **asoziazio** mekanismoen bidez gordetakoa gogoratzeko ahalmena. Berria - Gaiak

3 ***asoziazio neurri*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Beraz, oro har, **asoziazio neurriak** aldagai nomimalak aztertzeko soilik erabiliko dira. ETC-entziklopedia

Estatistikan, phi koefizientea 2x2 kontingentzia taula kontingentzia tauletarako erabiltzen den **asoziazio neurria** da. ETC-entziklopedia

4 ***asoziazio ordinal*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Estatistikan, Goodman eta Kruskalen gamma, **asoziazio ordinal** eta heinen korrelazioko neurria. ETC-entziklopedia

---

asoziazionismo *iz* asoziazioak sortzeko joera.

Ondoren, mahai-ingurua eginen dute, Sara Soto soziologoaren eskutik, Etorkinen **asoziazionismoa** Nafarroan izenburupean. Berria - Euskal Herria

Eta erretinako proiekzioak nahiko informazio du, gainera, bere baitan, ikusleak **asoziazionismoak** beharrezkotzat jotzen dituenak bezalako beste informazio-iturririk inoiz (edo oso gutxitan behintzat) behar izan dezan. Josu Zabaleta

Euskal Herrian dagoen **asoziazionismo**-mailak harreman-sare trinkoa osatu du gizartean eta, horren kariaz, masa-hedabideen bitartez zabaltzen diren pertzepzioak eta herritarrek, beren egunerokotasunean, jasotzen duten mundu-ikuskerak talka egiten dute sarritan. Txema Ramirez de la Piscina

Oso interesgarria da hori guztia **asoziazionismoari** ni bezain lotua dagoen pertsona batentzako. Berria - Euskal Herria

---

asoziazionista *iz* asoziazionismoaren aldeko pertsona.

Saizarbitoriak **asoziazionista** militantearen arduraz lotu ditu denboraren geziak, aurrena ihesaldiko xehetasun, sentsazio edo aldarte zehatza eta beronek dakarren oroitzapena eta gero iraganetik itzulera orainaldira. Berria - Kultura

---

aspa *iz* X itxuran guruzaten diren bi lerrok osatzen duten irudia.

Maelek ez zuen atea berriro margotu, eta honek lehengo itxura bera erakusten zuen, alegia, gorriaren gainean **aspa** orlegia. Joanes Urkixo

Hesi-lana nekez betetzen duen adreiluzko horma erdi erorian, pintada zahar bat ageri da nire koaderno handiko pegatinaren berdina: xiringa bat **aspa** gorri batez ezabaturik. Anjel Lertxundi

· Baina, lainoak hartuta daudeneko, ez dakite hain azkar dabiltzan **aspa** txarrok jo gabe pasatzen. Pello Zabala

---

aspaldi *(ETCn **72.678** agerraldi)* **1** *adlag* duela asko, behinola.

Zuenak **aspaldi** galdu zuen zeukan zentzu guztia. Jon Alonso

Aspaldi, agian duela hogeita hamar urte, ikasi nuen besteei denbora oparitzen. Ana Urkiza

"**Aspaldi** ikusi dudan ederrena!", esan zuen erabakitasunez. Bernardo Atxaga

Aspaldi bi gela izan ziren han: logela eta jantzitokia. Xabier Olarra

Aspaldi galdu baitzuen, beharbada, benetako kritika - harria harri gainean paratzen duen hori - burutu ahal izateko sineskortasuna. Patziku Perurena

-Faborez, etxekoandre, **aspaldi** ezer berorik hartu gabe gaude... Pello Lizarralde

Aspaldi galdutako borroka du hori Gelatxok, eta hori aipatuta halako irribarre etsitu bat egiten du. Pako Aristi

Nor kixkaliko du ba haren gar **aspaldi** itzaliak? Xabier Mendiguren Elizegi

Gizarte garatu batean duen zereginaz esan nahi dugu, gizarte modernoetan unibertsitatea bihurtu baita **aspaldi** gizartearen hezur eta ardatz nagusi, nahiz hori ez dugun,

zoritxarrez, hain argi ikusten hemen ere, Euskal Herrian, hala gertatzen denik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nire ama bera ere, ez zuen horren **aspaldi**, bosgarren hilera arteraino egon zen negar batean, abortatzea erabaki zuen arte. Joxan Elosegi

Egunero, eta **aspaldi**, ikaragarri gaizki. Joxe Azurmendi

Eta nire jarraikitasunaren frogek **aspaldi** unatua zuketen nire zalduna ez bertze edozein. Jon Muñoz

Poemak egiteko garaiak joan zaizkik hiri, hemezortzi urte **aspaldi** bete hituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bidearen ezkerrera, harresia baino lehen, baserri zahar bat zegoen **aspaldi**, erdi eroria, zohizko teilatua harritzarrez betea eta paretetako harearria hezetasunak eta haizeak higatua zituena. Koro Navarro

Horretarako, liburutegian, **aspaldi** banatu zituzten esku-orritxo batzuez baliatu ziren: Ebakuaziorako Oinarrizko Gida. Karlos Linazasoro

Oroitzapen hari, Manuel Lekuona idazleak **aspaldi** esandako zerbait gehitu zitzaion. Bernardo Atxaga

Aspaldion eurek egindako izar horiak ere badauzkate salgai, oihal horia geroz eta gehiago falta baita (amaordea **aspaldi** arduratu zen gureak erosteaz). Urtzi Urrutikoetxea

Lard kaleko etxebizitza hura gela zulo bat besterik ez zen; gela zarrastatu bat, euriaren indarrez kristalen distira **aspaldi** galdutako leiho bakar batek argitzen zuena. Karlos Zabala

Aspaldi, ordea, ez duzu hara agertzerik izan Patri. Hasier Etxeberria

Gero, handik hurbil zegoen beste leku batera aldatu ziren, Portziunkula izeneko lekura; han zegoen, gorago esan denez, Frantziskok **aspaldi** konpondu zuen Andre Mariaren eliza. Askoren artean

Vázquez Montalván zenak ere kontu hauetaz **aspaldi** egin zuen gogoeta, duela mende laurden inguru. Txema Ramirez de la Piscina

Aspaldi iragana dut mende erdiaren marra. Aingeru Epaltza

Amontillado upela lehendik ere irakur zitezkeen euskaraz, sona handiko idazle-itzultzaileek euskaratua (Jon Mirandek aurrena, Oskillasok gero), **aspaldi** samar. Koro Navarro

Ez dut jo **aspaldi**. Oskar Arana

Jendez gabetze horrek, oso **aspaldi** hasiak, oraindik ere badirau, eta soldadu erromatarrek abandonatutako etxeetan dute kanpamendua". Iñaki Iñurrieta

• **2** *iz* duela denbora askotik orain artera.

Gure lagunen zerbitzuan jarri zen - **aspaldi** batean Virgilio Danteren zerbitzuan jarri zen bezalaxe-, eta ganberaburuaren bulegoraino lagundu zien. Jose Morales

Aspaldi luzetik, bere obra gorena lantzen ari zen Uccello, begi orotatik gordean. Juan Garzia

Zu, berriz zu: gaztetan, ikasle garai haietan, **aspaldi** hartan, zerbait zintzilik geratu balitzaizue bezala. Lourdes Oñederra

Gnôr Grassiadiô eta Gnôr Côlombô bi lagun-etsai ziren, zeinak, ele zaharrek jasotzen dutenez, aurkez aurke bizi izan baitziren inork oroit dezakeen baino **aspaldi** luzeagotik, Moncalvo-ko hiriko galtzada mehar baten alde banatan. Juan Garzia

Aspaldi batean, artean institutuan zebilela, Barojari buruzko lan bat egin beharra egokitu zitzaion: Schopenhauer-en eragina Pio Barojarengan edo antzeko zerbait. Imanol Zurutuza

Orduan gogoratu zitzaidan derrepente izen barregarri horrek, **aspaldi** guztitik lastre baten gisa sentitu banuen ere, izen horrek agian hala lagunduko zidala niri ere gorabidean nola hanka herrenak lagundu zion Lakatosi kirol noble eta eder guztietan trebatzen. Matías Múgica

Aspaldian izan zen, **aspaldi** luzean. Javi Cillero

Adrenalinazko uhin bortitz batek Fionnen gogoa inbaditu zuen, eta bera sendo eta bizirik sentitu zen, **aspaldi** hartan sentitu gabe zegoen bezain bizirik. Joanes Urkixo

2 *aspaldi ez dela*

-Garai batean, oraindik **aspaldi ez dela**, gaixoari morfinarik eman gabe eutsiko zitzaion albait gehien, haren sufrimendua premiarik gabe luzatuko, baina, zorionez, gauzak aski aldatuak dira geroztik. Imanol Zurutuza

Aspaldi ez dela, seriean elkarturiko hiru neurona edo gehiagoren eraztunean dabiltzan korronte elektriko txiki batzuekin lotzen zen oroimen zati bakoitza. Irene Aldasoro

Horixe pentsatuko nuen neuk ere oso **aspaldi ez dela**. Xabier Olarra

Nafarroako erresumaren armarrien zati da eta **aspaldi ez dela** Frantziaren armarriaren erdia zeukan. Koldo Izagirre

Eroa baita aurrean duguna, jaunak, eta kasu hau are da jakingarriagoa, are interesgarriagoa, zeren oraindik **aspaldi ez dela** hil den eta Bavarian platonikoki erreinatu duen errege bitxiaren, printze zoritxarreko horren antza baitu gauza askotan. Josu Zabaleta

Aspaldi ez dela, leihotxoa zuten kamisoiak erabiltzen ziren. Luis Elberdin

Aspaldi ez dela azaldu zidanan zergatik jartzen diren barazki-saltzaile guztiak Bauernmarkt-en, eta lore-saltzaileak Kärntner kaleko luzapenean. Anton Garikano

Anaia ere hil zioten Ismeti poliziek politika arazoengatik **aspaldi ez dela**. Jon Arretxe

Oso **aspaldi ez dela**, mezak hizkuntza arrotz batean ematen ziren: latinez. Iñaki Arranz

Hori dena **aspaldi ez dela** gertatu zen, duela hiru urte-edo. Koro Navarro

Arratsalde batean hasi zen guztia, ez dakit zuzen zer egun zen, baina **aspaldi ez dela**. Oskar Arana

Aspaldi ez dela, orri hauetan irakurri genion egileari berari literaturarenak egin duela etikaren eta juzku moralen morroi baldin bada. Berria - Kultura

Gero, pentsatutakoan, gauza pila bat etorri zitzaidan burura: besteak beste, oso antzeko egoera bizi izan genuela **aspaldi ez dela**. Berria - Harian

3 *aspaldi gabe*

Aspaldi gabe hasia zen katea gai afrikarrez hornitzen, bazekien bezeria dotorearen aurrean diskrezioz jokatzen eta isilik egoten, eta alde bat utziak zituen jantzi indigena itsusi haiek. Joxan Elosegi

Bera, esaterako, **aspaldi gabe** gaixorik egon zen, eta sendagileek esan zioten hil egingo zela, hilburukoa prestatu behar zuela, baina berak ez zien sinetsi eta bizirik iraun zuen. Jose Morales

-Aspaldi gabe -esan zuen azkenean-, nire seme gazteenak bezain ongi gidatuko zintudan bide honetatik; baina, orain hiru bat urte, gauza bat gertatu zitzaidan kristau bati sekula gertatu ez zaiona, edo, gertatu bazaio, ez da kontatzeko bizirik atera; eta orduan pairatu nituen izu-[...]. Koro Navarro

4 *aspaldi handian*

Zaharra zen fitxa, **aspaldi handian** idatzia. Jon Muñoz

Aspaldi handian ez ginen kanpora irten denok batera, hirukote gisa. Mirentxu Larrañaga

Aspaldi handian teknikaren alde liluragarriari eta praktikoari -robotak morrontza desagerraraz lezake- mehatxu eta arrisku sentimendua nagusitu zaie. Markos Zapiain

Gero eta hondoratuago, pasio zahar guztiak berritu nahi dituen bihotz hilezkorra emango liokeen edabe horrexen bila dabil Venezia **aspaldi handian**. Anjel Lertxundi

Behin batez, errege bat **aspaldi handian** ikusi gabeko anaiaz oroitu zen. Patxi Zubizarreta

Urte gozorik ez da izan gurean **aspaldi handian**. Jokin Urain

Aspaldi handian, greziarrek Troia suntsitu zuten. Juan Kruz Igerabide

Aspaldi handian ikusten ez zuen Llum hura. Antton Olano

Halaz guztiz, denek bizirik zirauten, **aspaldi handian** gertatutako historien parte baitziren, gure ama txikia izan eta honelakoak entzun zituen garaikoak: "nire zakurra'n ahizpa" edo "ze'en usaia du azido sulfidrikoak". Fernando Rey

Ematen du ez duela **aspaldi handian** lorik egin, eta ez ditu ni kontsolatzeko hitz egokiak bilatzen. Anjel Lertxundi

Behinola, harriek ere hizketan zekiten garaian", edota Grimm anaien bildumako lehen esaldikoa: "**Aspaldi handian**, nahi izateak oraindik balio zuen garaian. Joxerra Garzia

Beraz, **aspaldi handian** ez bezalako elur-bisutsa izan dute Mendebaldean. Mirentxu Larrañaga

Aspaldi handian, derrotak herrialde honetara ekarri zuenean, mendi horien entzuterik ere ez zuen. Aingeru Epaltza

Aspaldi handian ez ginen, lehenago bezala, larunbat goizetan lanean ari. Daniel Landart

Johnek justu-justu gogoratzen zituela gurasoak, **aspaldi handian** ezagututako pertsonak balira bezala; eta Michaelek, berriz, uste zuela Wendy zela bere benetako ama.

Julen Gabiria

5 *aspaldi handiko*

Aspaldi handiko tradizio honek guziak, noski, zubiak gizaldiz gizaldi izan duen inportantzia erakusten du. Patziku Perurena

Eta jakina denez, **aspaldi handiko** Ziripot zarpail honek, oro har, deabru, sorgin, koko, bufoi, juglare, edo momo irrigarri/izugarri/errukarria gorpuzten du. Patziku Perurena

Aspaldi handiko gaitza duk: izpiritu noble xaloak bidean galtzen hasi zirenekoa. Patziku Perurena

Aspaldi handiko hileta elizkizun hartan gertatutakoa etorri zaio gogora. Jokin Muñoz

Aspaldi handiko urteetan nagusi dabilkigun politika eta ekonomia doktrinari neoliberalismo izena eman zaio. Iñaki Heras

Gaztetxo baten pare bizi-poztu nintzen, **aspaldi handiko** partez. Joxe Austin Arrieta

6 *aspaldi honetako*

Egunak darama Jon gabeko egoera hori irudikatu nahian, baina galdu dituen bi hileko horiek, gehi **aspaldi honetako** goragale ugariek, behin eta berriro ebatzi diote gogoa. Jokin Muñoz

Gelan hautsontzi bakarra zen, **aspaldi honetako** moda ergelari jarraikiz ezkontzetan banatzen diren horietarik. Aingeru Epaltza

Gaur gauean **aspaldi honetako** nire bizitzan izan dudan izu-ikararik larriena sentitu dut, izerdi patsetan, arnasestuka eta dardaraz uzten zaituzten - eta zorionez bizitzan oso noizbehinkakoak, bakanak diren - beldurraldi horietako bat. Pako Aristi

Aspaldi honetako irandar agintarien erretratuez apainduta dago toki hau. Jon Arretxe

Antzik ere ez dute atzoko idatzi haiek eta **aspaldi honetakoek**. Hasier Etxeberria

7 *aspaldi honetan*

Aspaldi honetan ez geninan armarik edukiko, eta ez luken soldatapeko hiltzailerik egongo. Anton Garikano

Egia erran, **aspaldi honetan** Pedro Agerre gauza anitzek sentiarazten dute bekatari. Aingeru Epaltza

Egia erran, inguruko etsaiek bakean uzten dituzte **aspaldi honetan**, ez baitituzte menperatzen ahal. Aurelia Arkotxa

Zoritxarrez, **aspaldi honetan** ez ditun oso ongi moldatzen. Antton Olano

Aspaldi honetan ez bezala aritu dira lanean sindikatuak, herri plataformak eta gizarte eragileak. Berria - Harian

Bioetikaren gaineko auziak direla-eta, **aspaldi honetan**, jatorri eta arlo desberdineko adituekin egon behar izan dut maiz. Berria - Gaiak

Lehengai metalikoen prezioak ere gori-gori jarri dira **aspaldi honetan**. Berria - Ekonomia

Finlandian aspalditik bizi dira elkarrekin suediera eta finera, eta **aspaldi honetan** errusiera ere batu zaie. Isabel Arrigain

Kantu xahar batek airostu ditu frango apairu **aspaldi honetan**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Urteroko legea du **aspaldi honetan**. Xabier Mendiguren Elizegi

Kontua da **aspaldi honetan** jakin dudala Tony Hunter eta zu oso ondo moldatzen zaretela elkarrekin - Nevadak ezpainak estutu eta hankak gurutzatu zituen -. Lopez de Arana

Izan ere, **aspaldi honetan** ez ditut horrelako gizasemeak ikusi, inolako zamarik gabe hain arinak. Askoren artean

Aspaldi honetan maizegi oroitzen ditut nire ametsak. Monika Etxebarria

Aspaldi honetan jendearen ahotan bolo-bolo dabilen kontua da. Mirentxu Larrañaga

Haizea fir-fir dabil hango kostaldetik **aspaldi honetan**. Lutxo Egia

Baina **aspaldi honetan**, ez dago Sipoljerik; gaur egun, inguruko beste komunitate batzuekin bat eginik, giza multzo handiago baten parte da. Anjel Lertxundi

Izan ere, kultura izan da **aspaldi honetan**, filosofo idealisten ondotik eta Estatu-nazioaren teoria gailendu zenetik, politikaren oinarri. Bernardo Atxaga

Starra, zain beheraldian **aspaldi honetan**, eskuetan zetxekion telefonoaren besagiari. Itxaro Borda

Har dezagun honako gaia: "Andoni, zure emaztea **aspaldi honetan** sekula baino gehiago prestatzen dela ohartu zara". Andoni Egaña

8 *aspaldi izan*

-Hori **aspaldi izan** zen. Oskar Arana

Ukatu egiten du hori gobernuak eta ziurtatzen du tortura izan bada, **aspaldi izan** zela. Xabier Montoia

Kontakizun honek **aspaldi izan** zuen hasiera eta gogoz bestera narama. Joseba Urteaga

Aspaldi izan gabea al hintzen Vienan? Xabier Olarra

Halere, **aspaldi izan** zen hori, urtarrila hasieran. Berria - Kirola

Aspaldi izan zen, 1956an, justu orain 50 urte. Berria - Harian

Ziburutarrek jakin-arazi zioten ere erregeari español batzu ez hain **aspaldi izanak** zirela portu hortako muntadura batzuen funditzen eta ondotik ziburutarrek berek aintzina pagatuak zituztela muntadura horien berritzeko gastu guziak... Herria

Gorpu bat azaldu zen Donibane Lohizuneko hondartzan, komandanteak "ur frantsesak" esaten zion bazterrean, baina oso hondatua omen zegoen, **aspaldi izan** behar zuen itorik, eta zaharraren hortzak zeuzkala. Koldo Izagirre

Baina, hori **aspaldi izan** zen. Pablo Sastre

Aspaldi izan naiz ni han eta, nire maleta hustu ondoren, hona etorri naiz zuzenean. Aitor Arana

Oso **aspaldi izan** behar zuen, hori bai, badiak aspaldi utzia baitzirudien, jainkoaren eskutik. Harkaitz Cano

Rekexok bereari eutsi zion eta kafetegitik atera zen, Raukina **aspaldi izandako** operazio bitxi bat kontatzen hastera zihoakienean. Joxemari Iturralde

Triangeluetan, adibidez, "berdintasun-kasu" ospetsuetan gertatzen da hori, **aspaldi izan** nintzen eskolakumeak hain gogoko zituenetan, alegia. Jon Muñoz

Martinek, ezkondurik egon zela azaldu zion Soniari, '**aspaldi izan** bazen ere". Aritz Gorrotxategi

Oihana **aspaldi izan** zen altzairuaren biktima, eta estepan, berriz, sartuak ziren automobila eta hegazkina. Iñaki Mendiguren

Orain, badirudi duela **aspaldi izan** zela, bizitza oso bat igaro dela. Mirentxu Larrañaga

-Hori **aspaldi izan** zen, bihotza -diotso Wendyk. Julen Gabiria

9 *aspaldi zuen*

Aspaldi zuen konfesatzera joan gabe, nire lehen jaunartzetik egia esan, baina barrua biziki hunkitu zidan hark guztiak, bete-betean sentitu nuen garai hartan on asko egin zidala Kristoren gorputza jan izanak. Joxan Elosegi

Aspaldi zuen, dena esan beharra dago, manikuratik igaro gabe zirenetik, baina aurikularraren kasuan, falange oso bat falta zitzaiola, edo bestela hatzaren muturra atrofiatu eta azala gogortu egin zela, esango genukeen. Joxan Elosegi

Aspaldi zuen, bestalde, emakume batekin egon ez zirela, ni bezalako emakume musugorri batekin batez ere. Joxan Elosegi

Aspaldi zuen ez nindutela ikusi eta, argi esan beharra dago, askoz argalagoa nintzen neu ere. Joxan Elosegi

Aspaldi zuen nerabezaroko egiteko horiek konplitzen ez genituela. Aingeru Epaltza

10 *duela aspaldi*

Duela aspaldi salatu dute abertzaleek etxebizitzaren arazoa. Berria - Euskal Herria

Uum... zaude ixtanpat... **Duela aspaldi** ez duzula adolezente bat gurutzatu, ezta? Ramuntxo Etxeberri

Duela aspaldi errana izan zen Caesar erromano jeneralarekin zerbait ahaidetasun bazukeela, haren tropak gaineko bidetik, via romana deitutik pasatu zirelakoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

"Pulchra leonina" deitu zuten **duela aspaldi** katedrala. Piarres Aintziart

Orain, badirudi **duela aspaldi** izan zela, bizitza oso bat igaro dela. Mirentxu Larrañaga

Lehen, **duela aspaldi**, Kolopeus errege han zen bizi, ezkonduak ziren gizonak ere, bertze erreinuetan bezala, han bizi zirela. Aurelia Arkotxa

Paristar batek **duela aspaldi** erran zuenaz oroituz: "Comment peut-on être Persan?". Piarres Aintziart

- Bai, **duela aspaldi** Parisen eta Godoten ondotik kasik jarraian Partida azkena. Itxaro Borda

11 *orain aspaldi*

Apeza dugu, egona Eskual herritik kanpo, **orain aspaldi** huntan. Menane Oxandabaratz

-Orain aspaldi hilko zunan noski. Juan Garzia

Nik dakidala, hogeita hamabost urte izan ditu berrogei urtetara iritsi zenetik, eta **orain aspaldi** gertatu zen hori. Antton Olano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

aspaldi agortu (8); **aspaldi ahaztu** (7); **aspaldi amaitu** (11); **aspaldi ari** (7); **aspaldi aspalditik** (10); **aspaldi batean** (30); **aspaldi behar** (10); **aspaldi da** (12); **aspaldi desagertu** (9); **aspaldi egin** (25); **aspaldi entzun** (8); **aspaldi erabaki** (11); **aspaldi erakutsi** (12); **aspaldi esan** (22); **aspaldi esana** (10); **aspaldi ez** (159); **aspaldi ez bezala** (14); **aspaldi ez bezalako** (7); **aspaldi ez dela** (45); **aspaldi ez zela** (13); **aspaldi ezagutu** (7); **aspaldi galdu** (27); **aspaldi galdua** (8); **aspaldi galdutako** (12); **aspaldi gertatu** (10); **aspaldi handian** (35); **aspaldi handitik** (16); **aspaldi hartan** (48); **aspaldi hartu** (16); **aspaldi hartu zuen** (7); **aspaldi hasi** (40); **aspaldi hasiak** (7); **aspaldi hil** (18); **aspaldi hila** (17); **aspaldi honetan** (165); **aspaldi honetan ez** (16); **aspaldi huntan** (33); **aspaldi idatzitako** (10); **aspaldi ikasi** (13); **aspaldi ikusi** (23); **aspaldi irakurri** (7); **aspaldi izan** (21); **aspaldi jarri** (7); **aspaldi jo** (7); **aspaldi joan** (10); **aspaldi joana** (7); **aspaldi luzean** (13); **aspaldi oraino** (12); **aspaldi samar** (15); **aspaldi sortu** (7); **aspaldi utzi** (55); **aspaldi utzia** (12); **aspaldi zen** (17); **aspaldi zuen** (14); **badu aspaldi** (9); **baina aspaldi** (40); **duela aspaldi** (27); **ez aspaldi** (28); **ez du aspaldi** (11); **ez hain aspaldi** (74); **hain aspaldi** (99); **hain aspaldi oraino** (12); **hoin aspaldi** (7); **hori aspaldi** (16); **horiek aspaldi** (7); **hura aspaldi** (9); **nik aspaldi** (16); **oraindik aspaldi** (16); **oraindik aspaldi ez** (16); **oso aspaldi** (24)

ari da aspaldian (7); **aspaldian aipu** (15); **aspaldian ari** (19); **aspaldian bada** (7); **aspaldian egin** (15); **aspaldian eta aspaldian** (16); **aspaldian ez** (152); **aspaldian ez bezala** (24); **aspaldian ez bezalako** (7); **aspaldian ez du** (8); **aspaldian ez dugu** (9); **aspaldian ez dut** (14); **aspaldian ez zen** (9); **aspaldian ez zuen** (9); **aspaldian ezagutzen** (10); **aspaldian galdetzen** (9); **aspaldian ikusi** (25); **aspaldian ikusten** (7); **aspaldian izan** (12); **hain aspaldian** (12); **joan den aspaldian** (13); **oso aspaldian** (11)

---

aspaldian 1 *adlag* aspaldi. ik **aspalditik**.

Bada,lagun edo hurko hori, berak emandako kutun hori aldean eramaten duala jakinik, lasaiago biziko duk, hi babestuago hagoelakoan egongo duk-eta **aspaldian** Zubiaurrek erantzun izaten zigun eran erantzun zidan. Edorta Jimenez

Aspaldian ez naiz Donostiara joan. Patxi Zubizarreta

Bertan igorle ezezagun batek erregutzen zion berak ahaleginak egin zitzan, gorengo agintaria baitzen, bere herrialdeko gaztetxoek esku hartu ez zezaten **aspaldian** beren lurraldea suntsitzen ari zen gerra odoltsuan. Josetxo Azkona

Han zuen, hori bai, Nash 55a; goitik behera arakatu nuen: indio-txabola baten barruan zegoen, euritatik hosto-sabai soil batez babestua, **aspaldian** erabili gabea, bistan zen, urratua, zoldatua, baina ibiltzeko moduan oraindik. Joxe Austin Arrieta

Txispasen berririk ez diat **aspaldian** eta ez duk harritzekoa; Malaga aldeko beroarekin barrabiletaraino nazkatuta egongo duk. Jokin Urain

Hezur-txertaketa **aspaldian** finkaturiko eta inork zalantzan jartzen ez duen transplante mota bat da, eta aldamioarena egiten du, alde banatatik hezur berria haziz joan dadin. Irene Aldasoro

Ondoko mahaietan betiko bezeroak zeuden, **aspaldian** han aterpetutako faxista bizkaitar gipuzkoar asturiar santandertarrak. Lutxo Egia

Nik neuk ere ez al nuen, bada, **aspaldian** erabaki inori ez uztea azpimarratutako libururik? Anjel Lertxundi

Aspaldian konfesatu gabe? Koldo Biguri

Egunen batean harrapatuko dute, baina amarru horrek emaitza onak ekarri dizkio **aspaldian** . Itziar Otegi

Aspaldian elkar ikusi gabeak ziren, eta urriko goiz epel hartan lurperatu zuten Ayala. Aritz Gorrotxategi

2 *aspaldi-aspaldian*

Hori guztiagatik, beharbada, **aspaldi-aspaldian** ikusten ez zen giroa zegoen Leioako campusean. Berria - Euskal Herria

Bada, Moncayon ere, **aspaldi-aspaldian** , jakina, rok -edo ruk- bat bizi izan zen. Martin Anso

Eta hori dena gertatu zen, esan beharra daukat, **aspaldi-aspaldian** , eta hura ez zen Davidek geroago ezagutu zuen Mabel Grey bera. Julen Gabiria

Maskorren bat aurkitzen zuen tarteka; bazekien, **aspaldi-aspaldian** , itsaso handia izana zela basamortu hura. Xabier Aranburu

Bertze batzuk, latinezkoak bereziki, **aspaldi-aspaldian** bizi eta hil ziren gizonen gogoetez eta eginez. Aingeru Epaltza

3 *aspaldi handian*

Gero eta hondoratuago, pasio zahar guztiak berritu nahi dituen bihotz hilezkorra emango liokeen edabe horrexen bila dabil Venezia **aspaldi handian** . Anjel Lertxundi

Noizbait Italo Calvinori irakurri nion ezen, **aspaldi handian** , izan zela Txuang Tzu izeneko marrazkilari bikain bat eta, behin batez, erregeak karramarro bat marrazteko eskatu ziola. Patxi Zubizarreta

Behin batez, errege bat **aspaldi handian** ikusi gabeko anaiaz oroitu zen. Patxi Zubizarreta

Urte gozorik ez da izan gurean **aspaldi handian** . Jokin Urain

Aspaldi handian , greziarrek Troia suntsitu zuten. Juan Kruz Igerabide

Ematen du ez duela **aspaldi handian** lorik egin, eta ez ditu ni kontsolatzeko hitz egokiak bilatzen. Anjel Lertxundi

Beraz, **aspaldi handian** ez bezalako elur-bisutsa izan dute Mendebaldean. Mirentxu Larrañaga

Aspaldi handian , derrotak herrialde honetara ekarri zuenean, mendi horien entzuterik ere ez zuen. Aingeru Epaltza

Aspaldi handian ez ginen, lehenago bezala, larunbat goizetan lanean ari. Daniel Landart

Beste zerbaitek larritzen zuen gehiago: Johnek justu-justu gogoratzen zituela gurasoak, **aspaldi handian** ezagututako pertsonak balira bezala; eta Michaelek, berriz, uste zuela Wendy zela bere benetako ama. Julen Gabiria

4 *aspaldian eta aspaldian*

Mendez mende, **aspaldian eta aspaldian** , arrantzak toki handia dauka Ziburun. Herria

Bainan Felipe Oihanburu talde horrekin aintzina badoa **aspaldian eta aspaldian** abiatu ildo nasaietik. Herria

5 *ez aspaldian*

Ez aspaldian , herrian burrun-burrun ibili zen gerrako kontuak gogoratzeko sukarra. Alberto Barandiaren

6 *ez hain aspaldian*

Ez hain aspaldian zituen furfuriak sartuak ditu segur Japoniak. Herria

arai batean, eta **ez hain aspaldian** entseguak eta jokaldi azkarrak eta biziak izan ohi ziren errugbiaren xarma. Berria - Kirola

7 *ez oso aspaldian*

Aitona hila zen ordurako, baina **ez oso aspaldian** . Xabier Mendiguren Elizegi

8 *aspaldian ere* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Aspaldian ere errana dute filosofo ugarik arrazoimena ez, borondatea dela gizakion ahalmen nagusia: ez dugula nahi sakon pentsatzen dugunaren arabera, baizik eta biziki nahi dugunaren arabera pentsatzen dugula. ETC-prentsa

Aspaldian ere intxaur saltsa egiten zen. ETC-prentsa

Agian, -eta arazo hau **aspaldian ere** planteatu zen- nazio batzuk beste batzuen zakuaren barruan jartzen direlako sentsazioa uxatzeko, Estatu berriak oraingoa baino izen neutrogoa hartu beharko luke. ETC-prentsa

Aspaldian ere , eguneroko hizketan, askok sinonimo bezala erabiltzen zituzten propaganda eta publizitate hitzak. ETC-prentsa

talde atrebitu batzuen gatik? Egia erran, **aspaldian ere** baditake holako zerbaiten irriskua bainan gehiago ote keinka huntan? ETC-prentsa

Stéphane Hessel, 93 urteko gizon bat, oraino biziki pixkor dena eta **aspaldian ere** frango ezagutua bai Frantzian eta bai Frantziatik kanpo. ETC-prentsa

Horrelako gauzak **aspaldian ere** hasi ziren egiten, baina adabakiak dira. ETC-prentsa

Aspaldian ere esana dugu Tobinen zerga adabakia besterik ez dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *orain aspaldian*

Baina **orain aspaldian** ez bezalako erronka du hurrengo urtean ere maila horretako talde beteranoena izaten segitzeko. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ari da aspaldian (7)

aspaldi aspaldian (6); **aspaldian abiatu** (4); **aspaldian agertu** (4); **aspaldian ahaztuta** (3); **aspaldian aipu da** (5); **aspaldian aipu den** (3); **aspaldian ari da** (4); **aspaldian bada** (7); **aspaldian badakigu** (4); **aspaldian badira** (3); **aspaldian berantesia** (3); **aspaldian berantetsia** (4); **aspaldian bere** (8); **aspaldian bila zebilen** (3); **aspaldian bizi** (3); **aspaldian egin den** (4); **aspaldian egin nahia** (4); **aspaldian egin zuen** (4); **aspaldian egindako** (3); **aspaldian egiten** (3); **aspaldian egon** (4); **aspaldian entzun** (5); **aspaldian erabili** (4); **aspaldian erakutsi** (3); **aspaldian espero nuen** (3); **aspaldian eta aspaldian** (16); **aspaldian eta aspaldian** (16); **aspaldian etorri** (4); **aspaldian etzela** (3); **aspaldian etzen holakorik** (3); **aspaldian euskal** (3); **aspaldian ez bezala** (24); **aspaldian ez bezalako** (7); **aspaldian ez da** (5); **aspaldian ez du** (8); **aspaldian ez dugu** (9); **aspaldian ez dut** (14); **aspaldian ez genuen** (4); **aspaldian ez ginuen** (6); **aspaldian ez naiz** (4); **aspaldian ez nuen** (4); **aspaldian ez zen** (9); **aspaldian ez zuen** (9); **aspaldian ezagutu** (3); **aspaldian ezagutua** (6); **aspaldian ezagutzen** (10); **aspaldian gainditu** (3); **aspaldian gainditua du** (3); **aspaldian galdetzen** (9); **aspaldian galdu** (5); **aspaldian galdua** (3); **aspaldian gertatu** (3); **aspaldian gogoan** (6); **aspaldian gure** (4); **aspaldian han** (7); **aspaldian hartu** (4); **aspaldian hasi** (3); **aspaldian hemen** (3); **aspaldian herri** (4); **aspaldian hila** (3); **aspaldian hola da** (3); **aspaldian hor** (4); **aspaldian ikusi ez** (5); **aspaldian ikusi gabeko** (4); **aspaldian ikusten ez** (5); **aspaldian inork** (4); **aspaldian irakurri** (3); **aspaldian izan den** (4); **aspaldian joan** (3); **aspaldian joana** (4); **aspaldian joanak** (3); **aspaldian lanik** (3); **aspaldian osagarriaz** (3); **aspaldian parisen** (3); **aspaldian sentitu** (5); **aspaldian utzi** (6); **aspaldian utzia** (4)

baina aspaldian ez (8); **bainan aspaldian** (5); **baita aspaldian** (4); **batzu aspaldian** (3); **batzuk aspaldian** (3); **bizi da aspaldian** (3); **dabil aspaldian** (5); **dago aspaldian** (4); **dela aspaldian** (3); **dira aspaldian** (8); **direla aspaldian** (5); **ditu aspaldian** (4); **dugu aspaldian** (6); **dute aspaldian** (5); **edo aspaldian** (4); **ere aspaldian** (10); **euskal herria aspaldian** (3); **euskal herrian aspaldian** (3); **ez aspaldian** (3); **ez da aspaldian** (3); **ez diat aspaldian** (3); **ez du aspaldian** (3); **ez dut aspaldian** (3); **guztiak aspaldian** (3); **haatik aspaldian** (4); **hain aspaldian** (12); **hau aspaldian** (4); **hoin aspaldian** (3); **hori aspaldian** (18); **horiek aspaldian** (3); **jadanik aspaldian** (3); **joan den aspaldian** (13); **nago aspaldian** (3); **nahiz aspaldian** (4); **nahiz eta aspaldian** (3); **nik aspaldian** (4); **nuen aspaldian** (5); **oso aspaldian** (11); **zebilen aspaldian** (3); **zegoen aspaldian** (5); **zen aspaldian** (11); **zuen aspaldian** (9); **zuten aspaldian** (5)

---

aspaldidanik *adlag* aspalditik.

Filipek **aspaldidanik** saila jarraikitzen du, izan dadin dantzan, musikan edo abesbatz lanean. Herria

Orduan, zuekin biziko naiz toki honetan, zuen gurasoei **aspaldidanik** eta betiko eman nien lurraldean. Elizen arteko biblia

Aspaldidanik sentitzen nuen interes izpirik ez neukala, ez nuen bilatzen ere: dirurik ez, osperik ez, edertasunik ez, etxerik ez, larderiarik ez, herri honetan balioski susta nezakeen ahaidegorik ez, ezer ez. Itxaro Borda

Aspaldidanik izan du aztergai teknologia eta bere ondorioak gaur egungo gizartean. Txema Ramirez de la Piscina

Sotana soinean nenbilen **aspaldidanik**, 18 urteak bete aitzin hartua bainuen zaia beltza, Uztaritzen, eguerditan herriko jatetxe batean bazkalduko ginela aita, ama eta hiru haurrideak. Piarres Aintziart

Sugegorriek oso izen txarra izan dute **aspaldidanik**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tira, nire arrebak bazekik, baina ez zioagu elkarri hitzik egiten, **aspaldidanik**. Mirentxu Larrañaga

Gure Auschwitzeko dutxa **aspaldidanik** omen dabil kili-kolo. Harkaitz Cano

Auzo afrikarretan zuen loftera eraman eta **aspaldidanik** ni bezalako baten bila zebilela esan zidan. Joxan Elosegi

Jakina zaigu guri, euskaraz ere irakurtzen dugunoi, **aspaldidanik** daudela gure hizkuntzara itzulita bai Biblia eta bai Virgilioren zein beste klasikoen hainbat pasarte, eta, azken itzulpen bereziak aintzat hartu gabe ere -Kixote Mantxako, W. Faulknerren nobelak, Li Bairen poemak-, nahikoa litzatekeela hori arazorik ez dagoela frogatzeko. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aspaldidanik ari da (3); **aspaldidanik buruan** (3); **aspaldidanik eguberrikari** (3); **aspaldidanik ez** (7); **aspaldidanik ezagutzen** (13); **aspaldidanik gure** (3); **aspaldidanik ikusi** (3); **aspaldidanik izan** (6); **aspaldidanik nuen** (3); **aspaldidanik zuen gaitz** (4); **baina aspaldidanik** (6); **da aspaldidanik** (8); **dago aspaldidanik** (3); **dira aspaldidanik** (4); **du aspaldidanik** (5); **duk aspaldidanik** (3); **ere aspaldidanik** (7); **hau aspaldidanik** (3); **zen aspaldidanik** (4)

---

aspaldidaniko *izlag* aspaldikoa.

S.B.k tresna eta makineria kontuan **aspaldidaniko** interesa zuenez, Londresko Zientziaren Museora eraman zuen Gregoryk, hango bilduma bikaina ikustera. Xabier Olarra

Charley, Eden ezaguna eta Jimmyrenean lagun egindakoetakoa, **aspaldidaniko** mireslea zuen Hazelek. Mirentxu Larrañaga

Hala ere, **aspaldidaniko** gehiegikeria haiek hainbesteraino iritsi ziren, non, Luis Errukitsuaren haurren garaian, laikoek, apezpikuen baimenik gabe, apaizak jartzen baitzituzten beren elizetan, edo bota egiten baitzituzten bertatik. Iñaki Iñurrieta

Brievako espetxean **aspaldidaniko** ezagunak zituen Robertok, Avilako Poliziaren Eskola Nagusian Polizia Nazionalarekin batera ikastaro bateratu bat egin zuen garaikoak, hain zuzen, eta ondo hartu zuten. Harkaitz Cano

- Abesbatza elektrikoak: Koruen emanaldiak **aspaldidaniko** zutabe dira Musikasteren egitarauan, baina aurten era bitxian kantatuko dute hainbat koruk. Berria - Kultura

Aspaldidanikoa du Elustondok argazkigintzarako isuria. Berria - Kultura

Gogoraraz dezadan, bidenabar, antisemitismoa bezain **aspaldidanikoa** dela otoitz-janzkiaren laidoztapena: deportatuei soingainekook bahitu, eta haietatik galtzazpiak egiten zituzten SSek, eta gero Lageretan preso zeuden juduen artean banatzen. Juan Garzia

---

aspaldietan *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* *adlag* aspaldi.

Aspaldietan ez du horrela ikusi. ETC-literatura, saiakera

Aspaldietan ez bezala, baina, orain ondo ikusten da emakumeek kanpoan lan egitea. ETC-literatura, saiakera

Hala kantatzen genuen, baina oso antzinako **aspaldietan** zen hori. ETC-prentsa

Hala zioten **aspaldietan**. ETC-prentsa

EMAKUMEA.- Puf! Auskalo! Etxe hori itxirik dago joan deneko **aspaldietan**! Urteetan ez da hara inor sartu. Barruko hormak ere huntzak janak egongo dira! ETC-telebista

---

aspaldiko 1 *izlag* duela denbora luzekoa.

Californiara egindako bisitaldi batean **aspaldiko** adiskide min judu batekin egin zuten topo kalean. Ramon Etxezarreta

Eta gero, haien ondoan, **aspaldiko** gertakari harrigarri batzuk ere gogorarazten dizkigu: uholde nagusia, Babelgo dorrea... Jose Antonio Mujika

Badago amets bat, **aspaldiko** ametsa, haur nintzenekoa, oraindik ahantzi ez dudana. Agurtzane Juanena

Big Joe aurkitu eta handik oso gutxira, bazirudien bat-batean ahaztu eta barkatu egin genituela **aspaldiko** gaitz eta ezinikusiak oro. Mirentxu Larrañaga

Hasieran halako ezinikusi moduko bat sentitu zuten bata bestearekiko, baina hura **aspaldiko** kontua zen, eta orain egiazko adiskidetasunak lotzen zituen. Karlos Zabala

Erretore ordeetan bazela neska bat, BZ, nire **aspaldiko** ezaguna, eta harekin hitz egingo nuela. Joxerra Garzia

Ea handik agertzekoa den, **aspaldiko** laguna duela, eta berarekin egon nahi lukeela. Iñigo Aranbarri

Etxeko primuari izen hura jartzea -don Justo- **aspaldiko** ohitura baitzen Justoetxen. Joan Mari Irigoien

Berriketen berriketek eta hutsalkerien hutsalkeriek nindukaten, **aspaldiko** nire lagun zaharrek, eta haragizko soinekotik tiraka esaten zidaten marmarka: "Uzten al gaituk? Imanol Unzurrunzaga

Kronologiaren arabera txukun ordenaturiko administrazio paper arrunten artera lerratuak ziren oso **aspaldiko** paper arrotz batzuk. Joxan Elosegi

Aspaldiko garaiak gogora ekartzen dituenean, aurpegia piztu egiten zaio Cenoni. Edurne Elizondo

Urrutiko, **aspaldiko** ametsa zirudien orain basamortuko isiltasunak Xabier Aranburu

Mende-hasierako antropologoen lanean oinarriturik (Bronislaw Malinovski eta Richard Thurnwald-en lanetan bereziki), Polanyik erakusten du nola, industria-iraultza arte, merkatuaren erakundeak, nahiz eta **aspaldikoa** izan, bigarren mailako eginkizuna baino ez zuen izan aldian aldiko zibilizazioetan. Koro Navarro

Denboraren buruan oraino gertatzen da itsasoak hola ondartzarat ekartzea **aspaldiko** lehergailu horietarik bat edo beste. Herria

Andre Ageda, emakume ahula, fanatikoa eta gaixobera, oso nortasun eskasekoa, **aspaldiko** neskameren baten mende egoten zen beti etxeko gauzetan, eta aitorlearen mende berriz auzi espiritualetan. Koro Navarro

Tartean, **aspaldiko** letra bat. Iñigo Aranbarri

Bizkar lodiko liburuak, urrezko letretan inprimatutako hitzak eta **aspaldiko** gauza agurgarrien itxurakoak. Jon Muñoz

Kontraesan zentzugabe hau **aspaldiko** mendeetatik datorren eliz legeen eta lege zibilen arteko talka etengabearen ondorio da. Juan Martin Elexpuru

Hitzaldi hura jasotzen duen liburuak, **aspaldiko** susmo bat, anormala naizela, egiaztatu egin dit. Markos Zapiain

-Ez dakit... **aspaldiko** kontuak dira... Ahantzi dut. Ramuntxo Etxeberri

Beste **aspaldiko** problema bat ekarri zion horrek Matiasi burura. Unai Elorriaga

Baina aitaren jario hunkigarrian babestu ordez, zotinak erdi gorde eta, **aspaldiko** arrangurak gogoan, aurre egin zion erresumin ozpindu batez: Anjel Lertxundi

Horretarako, **aspaldiko** testu eta tradizio desberdinak bildu, eta kate jarraitu baten itxurapean aurkezten ditu, herriak ordurako erakunde eginak eta zehatzak balitu bezala. Jose Antonio Mujika

Aspaldiko garaietara joan beharrik ez dago, ordea, adibideak aurkitzeko, dela egiazko pasadizoetan oinarrituta, dela umore ukitu batez asmatuta. Iñaki Arranz

2 (izenaren eskuinean izenondo gisa)

Ez da konturatzen apurka-apurka dena andeatuz eta hondatuz doala, bizitzako ibilbide **aspaldikoak** ahitua. Xabier Amuriza

Haien atzean, erdi ezkutaturik, gaur dekadentetzat dauzkagun frantses-estiloko txalet **aspaldikoak**, beren harrizko fatxadaz eta arbelezko teilatuaz. Anjel Lertxundi

Rubén Daríok zioen Homerok nahitaezkoa zuela bere aurreko Homeroren bat, eta Homeroren aurreko Homerok beste bat, eta ez gara oraindik iritsi animaliek eta landareek hitz egiten omen zekiten garai **aspaldikoetara** ... Anjel Lertxundi

Philomène eta Dominiqueren eskuinean ziren soinulariek dantza bururatu zutelarik, hara joan zen, eta, mikroa eskuetan hartuz, gazteek dantza herrikoi **aspaldikoak** erakutsiko zituztela esplikatu zuen. Aurelia Arkotxa

Hark hala ulertu zuen eta ez zen izan bien adiskidetasun **aspaldikoa** galtzeko arriskurik. Juan Garzia

3 (bere horretan izen gisa)

- Zer zabiltza hemen, **aspaldikoa** ? Koldo Izagirre

-Motel, **aspaldiko** ! -egin zuen oihu ikaskide ohiak, Andresengana hurbilduz. Josu Zabaleta

- Manu, **aspaldikoa** ! Urtzi Urrutikoeetxea

-Zer, ez al dugu ezer esan behar, edo? **Aspaldikoak** ! Baneukan gogoa zuekin egoteko! Fernando Morillo

4 ***aspaldi-aspaldiko***

Aspaldi-aspaldiko partez, erantsi beharko dut; izan ere, orain arte, gogoan dudala behintzat, bi liburu besterik ez ditut lapurtu nire bizitza osoan, biak ere karrerako lehen urtean nengoela eta txakur txikirik ez neukala, datu hori barkagarri baldin bada. Xabier Mendiguren Elizegi

Guk dakiguna da, **aspaldi aspaldiko** mintzaira zaharra dela gutartean eskuara. Xipri Arbelbide

5 ***aspaldi handiko***

Aspaldi handiko hileta elizkizun hartan gertatutakoa etorri zaio gogora. Jokin Muñoz

Aspaldi handiko gaitza duk: izpiritu noble xaloak bidean galtzen hasi zirenekoa. Patziku Perurena

Aspaldi handiko urteetan nagusi dabilkigun politika eta ekonomia doktrinari neoliberalismo izena eman zaio. Iñaki Heras

6 ***aspaldi handiko partez***

Gaztetxo baten pare bizi-poztu nintzen, **aspaldi handiko partez** . Joxe Austin Arrieta

7 ***ez aspaldiko***

Ojiba hauetarik zenbaitek zaharberritze **ez aspaldiko** eta, esan dezadan, inteligente baten zantzuak dauzkate. Koldo Izagirre

Honek, neskalaguntzera joandako mutila harrika hartzeko ohitura **ez aspaldiko** hura dakar gogora; badirudi Erdi Aroko justiziaren aztarnak dituela. Patziku Perurena

Forentsea, hots, minutu bat lehenago solaskide zuena, hor zen beti, apez-funtzionarioarekin oraingoan, baina **ez aspaldiko** ikaskidearen kalpar trinkoa. Aingeru Epaltza

Basamortu zuri horretan hainbat gauzak gidatu ahal zaitu, baina ez urruneko sorlekuak **ez aspaldiko** ume denborak. Joseba Sarrionandia

8 ***ez hain aspaldiko***

Ez hain aspaldiko Dinosaur Land hartan behin rattlesnake hura kalitzera behartua izan zenean, ez zuen gehiago bakartasunaz sufritzen: bizian txertaturiko elementu garrantzitsua bihurtu zitzaion nehor gutxik hain luzaz paira zezakeen mina. Itxaro Borda

Orobat zuen gogoan, ordea, Swann zaharrak bezala bizipoza ia ezkutatu beharra sentitzen zuen garaia, **ez hain aspaldikoa** . Imanol Zurutuza

Guztiekin prestu eta atsegin jokatu zuen, **ez hain aspaldiko** traizioa airean lurrindua iduri. Aingeru Epaltza

Halakoxeak omen ziren **ez hain aspaldiko** haiek, ordubetearen jiran, Aste Santuko arratsetan, eliza ilunduan, kortinak ere botata, santuak zapi morez tapatuta, ezeri begiratu ezinik [...]. Pello Zabala

9 ***ez oso aspaldiko***

15 herrialdetan ateratako argazkiak dira San Telmokoak, " **ez oso aspaldikoak** ". Berria - Kultura

Autobuseko leihatilatik begira, Dabidekikoa gertatu zenez geroztiko garai **ez oso aspaldikoaz** oroitu naiz, eta Gasteizko Marañón kafetegian ebaki bat eskatu, eta leiho ondoko mahaian esertzea atsegin izaten nuela, handik oinezkoei erreparatzeko. Patxi Zubizarreta

10 ***aspaldiko egia***

Naomi Klein idazle eta globalizazioaren kontrako ekintzaile kanadarraren esaldia **aspaldiko egia** da Nigerian. Berria - Mundua

Hala ere, ezagun zaigun adibide-multzo bat aipa daiteke erakusteko egiptologo ospetsu honek zerturiko proposizioa benetan **aspaldiko egia** historikoa dela. Iñaki Mendiguren

Liburuan barrena azalduz joan daitezkeen pertsonei eta gauzei buruzkoak, baina baita ideiei buruzkoak ere, nahiz eta, puntu honetaz denaz bezainbatean, goganbehar naizen **aspaldiko egiak** asmatzen ibili ez ote natzaizun usu. Joan Mari Irigoien

11 ***aspaldiko parteko***

Alde Zaharreko kaleetan barna egin genuen (nire) **aspaldiko parteko** manifestazio hura oso kopurutsua izan ez bazen ere, itzela izan zela aitortu behar dut. Iban Zaldua

Aspaldiko parteko irribarrea desagertu egin zitzaion, supituan Samsa bilakaturik berriro. Unai Iturriaga

12 ***aspaldiko partez***

Ez nuke hitzaurretxo hau amaitu nahi **aspaldiko partez** berriro irratian jarduteko aukera eman didatenei neure esker ona agertu gabe. Joxerra Garzia

Etxera deitu beharrean herriko kartzelara deitzen zuen lagunarenaz akordatu da, **aspaldiko partez** . Arantxa Iturbe

Irakasleon kontaduria sentimentala eramaten zuen eta pozik zegoen nonbait **aspaldiko partez** zerbait ganorazkoa, zerbait berria, deskubritu uste zuelako. Joxean Agirre

Asteleheneko partidan Ibarrola atseginez ikusi dugu **aspaldiko partez** . Herria

Euskarri posturako, Denoueixek Xabi Alonso eta Mikel Aranburu ditu jokatu ezinik, eta, hortaz, Alkizarekin batera, **aspaldiko partez**, baliteke Borisek jokatzea. Berria - Kirola

Kazetari lanaren morrontzarik gabe bisitatu du aurten, **aspaldiko partez** , Laxaro Azkunek azoka. Berria - Kultura

Aspaldiko partez telebistako programa batean hartu dut parte, duela gutxi. Pako Aristi

Bularretako zuria jantzi zuen **aspaldiko partez**. Unai Elorriaga

Eta guk, **aspaldiko partez**, geure burua eder ikusi genuen. Anjel Lertxundi

Pentsatzeko gai izan banintz, eskertuko nizkion animo hitzak Iñakiri, **aspaldiko partez** zuzentzen zizkidan lehen hitz bero eta lagun gisakoak. Xabier Montoia

Gu denak ere bozkariotan gituk, hemen, Oilandoiko baselizan elgar ikusten baituzue **aspaldiko partez**. Michel Oronoz

Orain egun batzuk, aurreko atala idatzi baino lehen, Itsasondon izan nintzen, **aspaldiko partez**. Xabier Mendiguren Elizegi

Duela bi urte senarra galdurik eta semealabak handituak izanik, **aspaldiko partez** libertatez goxatzeko denbora etorri zaiola. Piarres Aintziart

Gertatu zen North East twenty two hura, edo Baffinek geroxeago adierazita-ko North East twelve delakoa, Artikoko erbiz beteta zegoela, eta, **aspaldiko partez** - ordurako hilabete baino gehiago generaman espedizioan -, haragi errea jan genuela ia gauero. Bernardo Atxaga

Batetik, aurreko soka luzearekin eten nahi izan zuelako, **aspaldiko partez**, berrogeialdia bai gutxienez iparrarekin, hego haizea ere sartu zuelakoz. Pello Zabala

Aspaldiko partez, guztiz bakean nengoen neure buruarekin, eta baretasun horrek samintasunik gabeko gogoetak eragiten zizkidan. Anjel Lertxundi

Aspaldiko partez aterpe gozoan zegoela sentitu zuen Txitxikovek. Jose Morales

Zurbil nengoen **aspaldiko partez**, historia zen dagoeneko baserritar musugorria. Joxan Elosegi

13 *orain aspaldiko*

Athleticek badaki zer den golak lehenengo minutuetan jasotzea, Realak azkenekoetan partidak galtzea, eta **orain aspaldiko** partez Osasunak UEFAtik kanpo geratzea zer den Aguirrek esan zuen atzo. Berria - Kirola

Morientesek, lehenengo, berarengan konfiantza izan ez zutenei mendekua hartu, Europan golegile onena bilakatu, eta **orain aspaldiko** lagun zaharrari besarkada eman nahi dio: belarri handiko harribitxiari, alegia. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko aspaldiko (4)

aspaldiko adiskidea (5); **aspaldiko adiskideak** (12); **aspaldiko adixkide** (4); **aspaldiko afera** (5); **aspaldiko aldarrikapena** (4); **aspaldiko amets** (4); **aspaldiko ametsa da** (4); **aspaldiko ametsa gauzatu** (3); **aspaldiko ametsa zen** (3); **aspaldiko argazki** (3); **aspaldiko asmoa zen** (3); **aspaldiko auzia** (4); **aspaldiko bat** (3); **aspaldiko bere** (3); **aspaldiko beste** (4); **aspaldiko bi** (9); **aspaldiko denbora** (3); **aspaldiko denboretako** (3); **aspaldiko denboretan** (18); **aspaldiko denboretatik** (3); **aspaldiko disko** (3); **aspaldiko egitasmoa** (3); **aspaldiko egun** (12); **aspaldiko egunetan** (5); **aspaldiko egunik** (6); **aspaldiko eria zen** (4); **aspaldiko eskaera** (6); **aspaldiko etsaia** (3); **aspaldiko euskaldunen** (3); **aspaldiko ez** (3); **aspaldiko ezagun bat** (5); **aspaldiko ezaguna** (15); **aspaldiko ezagunak** (19); **aspaldiko ezinikusiak** (3); **aspaldiko eztabaida** (4); **aspaldiko filma** (3); **aspaldiko garai** (7); **aspaldiko garaiak** (4); **aspaldiko garaiei** (3); **aspaldiko garaietako** (4); **aspaldiko garaietan** (12); **aspaldiko gauza** (4); **aspaldiko gauzak** (4); **aspaldiko gertakari** (3); **aspaldiko gure** (5); **aspaldiko handiena** (3); **aspaldiko hura** (4); **aspaldiko ideia** (3); **aspaldiko istorio bat** (3); **aspaldiko istorioa** (4); **aspaldiko ixtorioa da** (4); **aspaldiko kantu** (6); **aspaldiko kantuak** (4); **aspaldiko kezka** (3); **aspaldiko kontu** (5); **aspaldiko kontua da** (15); **aspaldiko kontua zen** (3); **aspaldiko kontuak dira** (9); **aspaldiko kontuez** (3); **aspaldiko lagun bat** (8); **aspaldiko lagun bati** (3); **aspaldiko lagun zaharra** (3); **aspaldiko laguna zen** (3); **aspaldiko lagunak dira** (3); **aspaldiko lagunaren** (3); **aspaldiko lagunek** (3); **aspaldiko lagunekin** (3); **aspaldiko lagunen** (5); **aspaldiko lan** (4); **aspaldiko lehergailua** (3); **aspaldiko leloa da** (3); **aspaldiko liburu** (3); **aspaldiko mendeetan** (5); **aspaldiko mendeetatik** (3); **aspaldiko nahia** (3); **aspaldiko nire** (3); **aspaldiko ohidura berme** (5); **aspaldiko ohidurari** (3); **aspaldiko ohitura bat** (3); **aspaldiko oroitzapenak** (3); **aspaldiko partez aste** (3); **aspaldiko partez berriro** (3); **aspaldiko partez ez** (3); **aspaldiko partez lehen** (3); **aspaldiko proiektua** (4); **aspaldiko urte haietan** (3); **aspaldiko urteetako** (3); **aspaldiko urteetan** (39); **aspaldiko urteotan** (5); **aspaldiko urtetan** (39); **aspaldiko usaia** (10); **aspaldiko xedea** (5); **aspaldiko zure lagun** (3)

baina aspaldiko partez (3); **baita aspaldiko** (3); **batean aspaldiko** (3); **bere aspaldiko laguna** (4); **beren aspaldiko** (5); **da aspaldiko partez** (5); **dago aspaldiko** (4); **den aspaldiko** (3); **dira aspaldiko partez** (4); **ditu aspaldiko** (4); **donostia aspaldiko** (5); **du aspaldiko partez** (6); **duela aspaldiko** (3); **dugu aspaldiko** (4); **dugun aspaldiko** (5); **dute aspaldiko** (4); **edo aspaldiko** (13); **ene aspaldiko** (7); **ere aspaldiko** (12); **ez aspaldiko** (9); **ez hain aspaldiko** (4); **gaude aspaldiko** (3); **ginen aspaldiko** (4); **gure aspaldiko** (15); **haren aspaldiko** (3); **honek aspaldiko** (3); **hori aspaldiko** (7); **horiek aspaldiko** (3); **hura aspaldiko** (3); **iruñea aspaldiko** (4); **lagun aspaldiko** (3); **nahiz eta aspaldiko** (3); **nire aspaldiko** (12); **nonbait aspaldiko** (3); **nuen aspaldiko** (6); **oso aspaldiko** (10); **zaie aspaldiko** (3); **zen aspaldiko partez** (3); **zion aspaldiko** (4); **ziren aspaldiko** (6); **zituen aspaldiko** (5); **zuen aspaldiko partez** (5); **zure aspaldiko** (3); **zuten aspaldiko** (6)

arazoa aspaldikoa (4); **aspaldikoa baita** (3); **aspaldikoa dela** (7); **aspaldikoa delako** (3); **aspaldikoa du** (5); **aspaldikoa ere** (4); **aspaldikoa izan** (4); **aspaldikoa zen** (9); **aspaldikoa zuen** (4); **da hain aspaldikoa** (3); **ere aspaldikoa** (5); **hori aspaldikoa da** (4); **oso aspaldikoa da** (5)

aspaldikoak dira (7); **aspaldikoak direla** (4); **haiek aspaldikoak** (3); **oso aspaldikoak** (5)

---

aspaldikoka *adlag* "aspaldiko" behin eta berriz esanez.

Gainean zekarren karga lurrean uzteko ia denborarik eman gabe hasi zaio Damiani besarkadaka eta **aspaldikoka**. Hasier Etxeberria

---

aspaldikotasun *iz* aspaldikoa denaren nolakotasuna.

Jeneroa ezagutzen zuen espezialista, etxekoandre hura, suntsitzear baitago: sukaldaritzako oinarriak ezagutu gabe, nekez molda ditzake neofitoak errezeta gehientsuenak, teknikarik menderatzeko, tresneria aproposik eta jeneroak eskura baditu ere, hauen berri zehatzik ez ezagutzearren (heldutasuna, egosteko denbora, zuritze eta zatikatzea, **aspaldikotasun** edo freskotasuna, puntuz pasaz geroko erreakzio posibleak, etc.). Edorta Agirre

---

aspaldikotasun *iz* aspaldikoa denaren nolakotasuna.

Jeneroa ezagutzen zuen espezialista, etxekoandre hura, suntsitzear baitago: sukaldaritzako oinarriak ezagutu gabe, nekez molda ditzake neofitoak errezeta gehientsuenak, teknikarik menderatzeko, tresneria aproposik eta jeneroak eskura baditu ere, hauen berri zehatzik ez ezagutzearren (heldutasuna, egosteko denbora, zuritze eta zatikatzea, **aspaldikotasun** edo freskotasuna, puntuz pasaz geroko erreakzio posibleak, etc.). Edorta Agirre

---

aspaldikotz *adlag* aspaldiko partez.

Ordukotz ezagutzen ginuen guk ere izen hori, ezen **aspaldikotz** bazitazken gure departamenduan ere. Herria

---

aspaldion *adlag* aspaldi honetan.

Horrelakoa zen ni **aspaldion** obsesionaturik nindukan idazlearen idazteko modua. Joxean Agirre

Jendeak ez ditu denak osorik erretzen eta zigarrokinetatik bildutako belarra saldu dut **aspaldion**, eta begira... Jon Maia

Ez dago esan beharrik, bada, kezkatuta gaudela, ETAren indarkeriaz baliatuta abertzale kutsua duen ororen aurkako erasoa bortitza baita **aspaldion**, gupidagabea esango nuke, eta areago erantsi, izaera demokratiko gutxikoa. Migel Angel Mintegi

Gehiegikeria galanta! Ezin da ukatu **aspaldion** gay batzuk nabarmendu egin direla politikan edo gizartean. Berria - Harian

Bizkitartean, eta hor legoke ozka, diru-emaitza soziala deiturikoak hein berdinean daude **aspaldion**. Berria - Kultura

Bat baino gehiago erosi duzu **aspaldion**. Lutxo Egia

Esperantza aldetik moztxo nabil **aspaldion**. Eskarne Mujika

Azken **aspaldion**, zer dela-eta ez dakit, neure poz guztia galdu dut, neure jardunbide oro bertan behera utzi. Juan Garzia

Eskopeta labur batez armatua den gizon bat dator lasterka diligentziaren ondoan **aspaldion**. Koldo Izagirre

Lehenago otuko ez zitzaizkion kontuez pentsatzera behartzen zuen bizitzak **aspaldion**. Xabier Montoia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aspaldion ez (8); **da aspaldion** (5); **dut aspaldion** (3); **nabil aspaldion** (4)

aspaldisko 1 *adlag adkor* aspalditxo, nahiko aspaldi.

Aspaldisko errauts bihurtuak ziren ordurako nire gaztetako suak. Juan Luis Zabala

-Guti gero; hemen "ateak zabalik" deritzan politika dago indarrean, **aspaldisko**. Jose Angel Irigaray

Aspaldisko du bere keñua egina gaitu egunak. Menane Oxandabaratz

Ni baino gazteagoa da, eta ni **aspaldisko** joan ninduan Donostiatik! Txillardegi

2 (izen gisa)

Badakik **aspaldisko** honetan trenak nola dabiltzan; eta esku hutsik etortzia izan duk zuhurrena. Txillardegi

Baina La Voz de Guipúzcoa errepublikanoa jasaterik ez zegok; eta El Fuerista delako hau erosten diagu **aspaldisko** honetan. Txillardegi

Aspaldisko hartan ikusi gabe egon ondoren, pozkariotan agurtu genuen elkar. Txillardegi

---

aspalditik 1 *adlag* duela denbora luze.

Kazetariak! Kanpoko kazetarien arteko batzuk aurrez aurre ezagutzeko gogoa **aspalditik** nuen egina. Edorta Jimenez

Medikuak argitu du ez dela Titinek duena joan den ostiralean sortutako lesioa, **aspalditik** duen zerbait dela. Berria - Kirola

Ez zekien noiztik zeuzkan, **aspalditik** seguru. Migel Angel Mintegi

Asentatuak gaude, baina zenbat aztoramen! Dakizun bezala, **aspalditik** neukan buruan zein zen nahi nuen etxea. Ramon Etxezarreta

Aspalditik zetozen oroitzapen solteak biltzen dira hor, inoiz topiko bilakatuak eta hiru Patriarka zaharrei egotziak. Jose Antonio Mujika

Finlandian **aspalditik** bizi dira elkarrekin suediera eta finera, eta aspaldi honetan errusiera ere batu zaie. Isabel Arrigain

Urak harria zipriztintzen du, **aspalditik** bilduak dituen goroldioak eta likenak bustitzen ditu, eta, orduan, suspertu egiten da ibaiaren esentzia. Pello Lizarralde

Irakurleak **aspalditik** sumatuko zuen, Merteuil andrearen ohituren karietara, zeinen gutxi errespetatzen zuen erlijioa. Jon Muñoz

Giza eskubideen urraketen inguruko kezka **aspalditik** datorkio Potterri. Berria - Euskal Herria

Aspalditik senarrak eta haren etxekoek tratu txarra ematen ziotela salatzen omen zien alabak. Gotzon Garate

Bestalde, amari bere bizikleta eskatu nion, **aspalditik** ganbaran baztertuta baitzeukan; emakume-bizikleta bat zen, auzotik pare bat kilometrora zegoen paper-lantegi batera lanera joateko amak garai batean erabilia. Juan Kruz Igerabide

Botila **aspalditik** zuan hustua. Josu Zabaleta

2 *aspaldi-aspalditik*

Aspaldi-aspalditik ziren elkarren etsai Kastrotarrak eta Laratarrak. Martin Anso

-Peppone: kriatura zapaldu eta ostikopean erabilitako koittadu bat, **aspaldi-aspalditik** infernuko penak eta nekeak nozitzen dituen kriatura dohakabe bat laguntza eske joan zaio bere erretoreari. Koldo Biguri

-Aspaldi-aspalditik dago eremu-hesiketa bat, eta gaur bertan ere gaixoak eta eroak, pobreak bezalaxe, beren barrutietan bizi dira, beste jendearengandik bereizita. Bernardo Atxaga

3 *aspaldi handitik*

Rina orduan ez zen etortzen gure etxera, haren berririk ez genuen **aspaldi handitik**; baina gure aita, Tersilla korridorean ikusten zuenean, denbora batean Rina ikusten zuenean bezalaxe sutzen zen. Fernando Rey

Pantxok **aspaldi handitik** du delako izaki beldurgarri horren entzutea. Aingeru Epaltza

Laurogei urte inguru dituela ezagutu dut nik **aspaldi handitik** barnean eraman dudan kontu zahar hau azalera ekarri didan aztia. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arazoa aspalditik** (4); **askok aspalditik** (4)
>
> **aspaldi aspalditik** (10); **aspalditik ari da** (15); **aspalditik ari dira** (8); **aspalditik ari gara** (8); **aspalditik ari zen** (3); **aspalditik behar** (3); **aspalditik bizi** (8); **aspalditik buruan** (7); **aspalditik da** (7); **aspalditik dabil** (4); **aspalditik dago** (10); **aspalditik dakit** (3); **aspalditik dakite** (3); **aspalditik dator** (7); **aspalditik datorkio** (3); **aspalditik datorren** (9); **aspalditik desiratzen** (3); **aspalditik du** (3); **aspalditik duen** (5); **aspalditik dute** (3); **aspalditik egin** (4); **aspalditik egiten** (4); **aspalditik elkarrekin** (3); **aspalditik ematen** (3); **aspalditik erabiltzen** (3); **aspalditik esana** (3); **aspalditik esaten** (3); **aspalditik eskatu** (4); **aspalditik espero** (3); **aspalditik ez dut** (3); **aspalditik ez zen** (3); **aspalditik ez zuen** (4); **aspalditik ezaguna** (6); **aspalditik ezagutzen du** (5); **aspalditik ezagutzen dugu** (7); **aspalditik ezagutzen dut** (8); **aspalditik ezagutzen dute** (3); **aspalditik ezagutzen duzu** (3); **aspalditik ezagutzen zuela** (4); **aspalditik ezagutzen zuen** (3); **aspalditik ezagutzen zuten** (5); **aspalditik galdua zuen** (4); **aspalditik genuen** (5); **aspalditik gogoan** (3); **aspalditik grina txarren** (3); **aspalditik hemen** (4); **aspalditik hona** (3); **aspalditik ikusten** (3); **aspalditik iragarri** (3); **aspalditik izan dira** (3); **aspalditik jakin** (5); **aspalditik landu** (3); **aspalditik lanean ari** (3); **aspalditik nabil** (3); **aspalditik neukan** (4); **aspalditik nuen** (5); **aspalditik oso** (5); **aspalditik sumatzen** (4); **aspalditik zain** (4); **aspalditik zebilen** (5); **aspalditik zebiltzan** (4); **aspalditik zegoen** (12); **aspalditik zen** (3); **aspalditik zeuden** (4); **aspalditik zor** (3); **aspalditik zuen** (14); **aspalditik zuten** (6)
>
> **baina aspalditik** (13); **berak aspalditik** (3); **berri aspalditik** (4); **dago aspalditik** (6); **daude aspalditik** (3); **denak aspalditik** (3); **dira aspalditik** (4); **dugu aspalditik** (4); **ere aspalditik** (8); **gaude aspalditik** (3); **hain aspalditik** (11); **hori aspalditik** (7); **ideia aspalditik** (3); **izan da aspalditik** (4); **izan du aspalditik** (3); **nik aspalditik** (6); **nuen aspalditik** (3); **oso aspalditik** (7); **zegoen aspalditik** (9); **zen aspalditik** (6); **zion aspalditik** (3); **zuen aspalditik** (11); **zuk aspalditik ezagutzen** (3); **zuten aspalditik** (3)

---

aspalditikan ik **aspalditik**.

---

aspalditiko *izlag* aspaldikoa.

Agudo zabaltzen zaizkigu begiak harriduraz eta kuriositatez, **aspalditiko** ipuinon aurrean. Pello Zabala

---

aspalditxo *adlag adkor* nahiko aspaldi.

Agirre, Orixe-, euskal literaturari begira, **aspalditxo**, h. d., jada 1960 eta 70eko urteetan egin zen Euskal Herrian: Varela jaunak hori ez daki, noski. Joxe Azurmendi

Hau ez zen gaztetxo bat, nerabezaroko ajeak gaindituak zituen **aspalditxo**, baina gaztaroa igarotzetik urrun zegoen artean. Migel Angel Mintegi

Ordurako ni "dantzan" nenbilen **aspalditxo** Bidasoaz bi aldeetan, arriskutik arriskura; eta behin bereziki heriotzatik miriz ihes egina. Txillardegi

Florent ahots ezti geldo bat entzuten ari zen **aspalditxo**, eta burua biratu zuen azkenean. Karlos Zabala

Gizakitxo durduzatuaren neurosi indibidual jasanezina gainditzeko, aginduak eta debekuak "neurosi kolektibo" baten indar absolutuarekin nola bermatzen dituen gizarteak, **aspalditxo** erakutsi zuen Freudek. Joxe Azurmendi

Berez, hamabi aizkolari dira Maila Nagusian, baina **aspalditxo** jakinarazi zuen Mindegiak aurten ez zuela esku hartuko txapelketan, eta halaxe egin du. Berria - Kirola

Serio baina txantxetan, txantxetan baino serio, **aspalditxo** dabilkit ideia bat buruan bueltaka: opariei buruzko liburu mardul bat egitea, alegia. Joxerra Garzia

Hori esan zidan behintzat **aspalditxo** konfirmazioak emanez hemendik pasatu zen obispoak. Juan Garzia

Sehaskatik **aspalditxo** jausi zen batekin ari zarete berbetan. Koldo Izagirre

Ni **aspalditxo** erretiratua nengoen merkatutik eta ez nuen asmatuko ez nondik nora ibili ezta zer esan ere. Jasone Osoro

Bizarra kasik egunero egiten **aspalditxo** hasia nintzenez gero, banekien nik zeregin horretarako ur beroa bezalakorik ez dagoela. Edorta Jimenez

Ipuina **aspalditxo** idatzia nuen, eta lehiaketara aurkezteko berrikusi egin nuen, eta neurri batean berridatzi. Berria - Kultura

Bizarra kasik egunero egiten **aspalditxo** hasia nintzenez gero, banekien nik zeregin horretarako ur beroa bezalakorik ez dagoela. Edorta Jimenez

Nolanahi ere, **aspalditxo** intrigatuta nindukan beste auzi bat ere ulertu nuen Umbertori orduan entzun nizkion hitzei esker. Anjel Lertxundi

Kristau-aroko hogeigarren mendean hau idazteko garaian, helenismoaren eta haren garaikideen arteko topaketa **aspalditxo** bukatua zen, eta, beraz, historialariak hasieratik bukaera arte jarrai zezakeen prozesua; baina non aurkitu bukaera hori? Iñaki Mendiguren

Egoera hau **aspalditxo** gaindituta zegoen Mendebaldeko Europa gehienean. Iñaki Mendiguren

Dena den, aitor dut, banuen nolabaiteko beldurra ere, berez ezinezkoa ere ez baitzen, eta banan-banan ikuskatu nituen, patxada ederrean, neska gazte izateari **aspalditxo** utzitako andere bidaide guztiak. Joxe Austin Arrieta

Maxek jada **aspalditxo** marraztutako zortzi sailei, hauxe erantsi zien Ruche jaunak: [...]. Jon Muñoz

Bi Ordena hauek agian honegatik izan ziren onetsiak, Italian **aspalditxo** sortutako bi sektak oraindik ere irauten dutelako: Humilatuen sekta eta Lyongo Behartsuak izenekoa. Askoren artean

Nozdriovek **aspalditxo** utzia zion biraderari eragiteari, baina organotxoko errejistro batek -oso kementsua bera- ez zuen inola ere isildu nahi, eta luzaz aritu zen bera bakarrik joka. Jose Morales

· *(izen gisa)* Hizkera jasoagoa darabilen arren, horixe barruntatu dugu **aspalditxo** honetan, gu bezalako beste euskaldun bat dugula Bernardo, beste adjektiborik ez genioke jarriko, zoragarri idazten duen idazlea, ulertzen duguna, gure hizkuntzan hitz egiten diguna... Berria - Kultura

Aspalditxo hartan txondorrik ezagutu gabeko ordekatxo batean egin zuten zuloa. Joxemari Urteaga

---

aspalditxoan *adlag adkor* nahiko aspaldian.

Une ezin hobea niretzat **aspalditxoan** gordeta izan dudan gauzatxo bat iragartzeko! Iñaki Mendiguren

Aspalditxoan irakurri nion Estitxu Arozenari, bertsolariok orobat, zer egiten dugun: "Bost segundo horietan esaten duzu: "zer da errezena?" Andoni Egaña

-Jakin behar duzue Gavard jauna oso arraro dabilela **aspalditxoan**... Karlos Zabala

Bi jarrera hauek dira errazena kritikatzekoak ("moderazioak" a priori plus intelektual handia dauka oraingo gizartean), baina **aspalditxoan** beraiek markatu dute erritmoa onerako zein txarrerako. Joxe Azurmendi

Nofuturekin etorri zen, **aspalditxoan** ez baitzen etxetik irten. Jon Muñoz

Demagun neska batek begiz jota duela **aspalditxoan** mutil bat, baina ez duela egokierarik aurkitzen harekin hizketan hasteko. Joxerra Garzia

---

aspalditxodanik *adlag adkor* aspalditxotik.

Demagun behin elkarren ondoan egokitzen direla eskolako jangelan, eta hantxe ikusten duela neskak **aspalditxodanik** desio zuen aukera. Joxerra Garzia

---

aspalditxoko *izlag adkor* nahiko aspaldiko.

Hiztegiak eta izendegiak arakatu ditugu, atsotitz bildumak miatu ditugu, egungo eta **aspalditxoko** kazeta artikuluak eta denbora pasak berrirakurri ditugu, kantak eta komikiak aztertu ditugu, gramatiketan ibili gara bila, belarria erne jarri dugu ingurukoen esanak jasotzeko, eta guzti-guztietan hitza aurkitu dugu, eta jolas egin dugu. Iñaki Arranz

Zumthor, Ong eta **aspalditxoko** teorikoak oinarri, apenas ezagutzen duten gaur egungo munduan ahozkotasuna hartzen ari den modu eta garapenera desberdinetarik ezer askorik. Andoni Egaña

Salerosketa oso handia izan zen atzo (2.673 milioi eurorena, **aspalditxoko** altuena) eta aldaketa dexenteak ere izan ziren: Repsol-YPFk %1,18 galduzuen, Gamesak %3,11 eta Arcelorrek %5,04 Berria - Ekonomia

---

aspalditxotik *adlag adkor* nahiko aspalditik.

Aspalditxotik barrenean gordeak neramatzan malkoak denak isuri nituen. Jesus Mari Mendizabal

K.o. 1914rako juduen emantzipazio ofiziala giza jardueraren maila guztietan **aspalditxotik** lorturiko zerbait zen Mendebalde modernoko munduaren eskualde guztietan, Errusiar Inperioak bereganaturiko eta jada desagerturiko Polonia-Lituaniako Erresuma Batuaren lurraldeetan izan ezik. Iñaki Mendiguren

Hori zuen amets berak **aspalditxotik**; argi eta garbi gogoratzen zituen Domínguez doktorearen hitzak: Imanol Zurutuza

Aitorpen honek ez du kriminal zaharra asaldatu, **aspalditxotik** baitaki zeinen arriskutsuak diren alarguntsen opariak. Koldo Izagirre

Aspalditxotik maite zaitut. Patxi Zubizarreta

Eta hau dena, Espainia barnean **aspalditxotik** dabiltzan beste istilu nahasien erdian: tradizioa versus progresua, kastizismoa versus europartu beharra, etc. Joxe Azurmendi

Espainiako telebistetan **aspalditxotik** darabilten teknika da, ustez emaitza onekin, hasierako sumarioan, hogei minutu geroago osorik, eta ahal bada kamera geldituz, emango dizkizuten irudi ikusgarriak iragartzea. Iñigo Aranbarri

Goizak ez zuen 1986an, Euskadi Irratian, orain **aspalditxotik** sortu den albistegi luzeen gose eta egarririk. Pello Zabala

---

aspaldixko *adlag adkor* aspalditxo, nahiko aspaldi.

Freudek ere **aspaldixko** hitz egin zuen ego kolektiboaz eta hark izan zezakeen indar eztandagarriaz. Karlos Linazasoro

Hortaz, itzul gaitezen berriz ere **aspaldixko** galdutako harira. Pello Salaburu

---

aspaldixkoan *adlag* aspalditxoan.

Orotarat, zenbat jende ote Afganistan hortan bizi? Kondaketa xuxenik ez omen da **aspaldixkoan** egin. Herria

Ipar-Europan **aspaldixkoan** hola dabiltza, argi apalak beti piztuak, bainan batzuk diote ez duela horrek deusik erran nahi. Herria

Aspaldixkoan bere osagarriarekin bazuen gora behera asko eta azkenean barkatzen ez duen gaitz hori agertu zaio eta laster bere saretarat bildu. Herria

Lasai zeuden **aspaldixkoan**. Karlos Linazasoro

---

aspaldixkotik *adlag* aspalditxotik.

Eta euskara hori eratzen ari da **aspaldixkotik**, idazle onei kasu eginez, lehengoei eta oraingoei. Herria

Anderrekin hitz egin nahi nuen **aspaldixkotik**. Txillardegi

Gero, gai izan zara beharbada nirekin kurritzeko orrialde batzuk eta hizkuntzaren itsasoko uretan oldartzeko, baina badut uste **aspaldixkotik** ni neu aldendu naizen eta bide bazterrean utzirik, itzuli handi bat egin dudan Sarasola, Zuazo eta Rubioren liburuekin. Pello Salaburu

Idazmakina desagertu da eta ordenagailuak du **aspaldixkotik** zamatzen. Aingeru Epaltza

---

asparrendar *izlag/iz* Asparrenekoa, Asparrenari dagokiona; Asparrenako biztanlea.

Halaber, herenegun espetxeratutako Koldo Lekuona **asparrendarraren** eta gainerako atxilotuen inkomunikazio egoera salatu eta hauen senide eta lagunei elkartasuna agertu zien herri ekimenak, mozio bidez. Berria - Euskal Herria

---

aspartamo *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi) iz* azukrearen ordez erabiltzen den gai zuria.

Aspartamoa fenilalanina eta azido aspartikoz osatutako substantzia da, azukrearen ordezko edulkoratzaile gisa erabilia. ETC-entziklopedia

Montignacen esanetan, freskagarri horiei **aspartamo** konposatua botatzen diote, eta, haren iritziz, epe luzean gehigarri hori debekatu egingo dute, minbizia eta esklerosia eragin ditzakeelako. ETC-prentsa

Asko dira horrelako erreakzioak eragin ditzaketen gehigarriak: **aspartamoa**, bentzoatoak, glutamatoak, nitrito nahiz nitratoak, sulfitoak, etab. ETC-prentsa

Izan daitezke naturalak (azukrea, eztia eta abar) edo sintetikoak, hau da, laborategian propio sortuak (sakarina, **aspartamoa**, ziklamatoa eta beste hainbat). ETC-prentsa

Gluzemian gutxien eragiten duten gozagarriak hauek dira: sakarina, **aspartamoa** eta sorbitola. ETC-prentsa

Azukrearen ordezko erabiltzen dira poliolak edo azukre alkoholak (sorbitola, manitola, xilatola) eta gozagarri ez-kalorikoak (sakarina, **aspartamoa**, ziklamatoa...). ETC-prentsa

Gozotzaile artifizialek (stevia, **aspartamoa**, sakarina...) kontsumitzaileen pisuan duten eragina aztertu duten ikerketak miatu ditu Kearnsek. ETC-prentsa

Gainera, **aspartamoak** edo sakarinak ez bezala, naturala izatea ere ba omen du bere alde. ETC-prentsa

Horiez gainera, sorbitola, manitola, glizerina, xarabe bakuna, xarabe usaindunak edo gozagarri sintetikoak ere (sakarina eta **aspartamoa**) erabiltzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edulkoratzaile horien artean dago **aspartamoa** ere (NutraSweet), 26. kapituluan deskribatzen dena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aspartamoa (E-951) sintesi-gehigarri bat da fenilalaninaz eta azido aspartikoz osatuta, metanol molekula bat gehituta. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aspektu 1 *iz* zerbait edo norbait ikus edo aztertu daitekeen modua.

Indarkeriaren eztabaidan fronte eta **aspektu** asko daude. Joxe Azurmendi

Esan daiteke Lizeoko azken ikasleak, Rodaseko Androniko-k bildu eta sailkatu zituela eskuizkribuak, **aspektu** didaktikoak izanik buruan batik bat. Askoren artean

Bere haurraren erakasleei bidai horren **aspektu** pedagogikoak aitzinatuz, hitzeman zien Ninak arlo ezberdinetako idazlanak interneten bidez, 'e-mailez', eskolara igorriko zituela. Ramuntxo Etxeberri

Aspektu estetikoak: hoskidetasuna, erritmoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Askotan idazlanaren **aspektu** formalek erabakitzen dute lana nola hartua izango den, begirune gehiagoz ala gutxiagoz, arreta gehiagoz ala gutxiagoz. Askoren artean

Ukitu ditugun **aspektu** desberdinen berri emango luketen azterketa-ildoak garatzea litzateke erronka nagusia. Askoren artean

Eginbehar honek zenbait **aspektu** ezberdin biltzen ditu: [...]. Xabier Arregi

Giza izpirituak era bateko eta besteko izenak hartzen ditu, egitate eta **aspektu** desberdinen arabera. Joan Mari Lekuona

Baina Zientziaren Filosofian, Zientzia Kognitiboan edo Gogoaren Filosofian ez bezala, beste **aspektu** bati, epistemologikoagoari, ematen zaio garrantzi handiagoa: behagarritasun kontzeptuaren azterketari, alegia. Askoren artean

Don Quixote Espainiaren sinbolo nazionalesentzialista bat bihurtu da, bere **aspektu** biekin: enigma bat, harengan balego bezala ezkutatua Espainiaren gainbehera eta "desastre"aren sekretua; eta itxaropen iturri bat, harengan gordeko balitz bezala Espainiaren erregenerazio eta etorkizun zorigarbi baten edabea. Joxe Azurmendi

Ikusmolde berria izanik, hainbat **aspektu** garatu eta zehaztu beharrean aurkitzen da Giereren programa naturalista. Askoren artean

Obra honek **aspektu** garrantzitsu bat du: emozioa. Berria - Kultura

2 *aspektu erlazio* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Telebista konbentzionalean **aspektu erlazioa** 4/339 baliokoa denez, plano horizontaleko pixelen kopurua bertikalekoa baino handiagoa da, 1,3 proportzioan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zehazki, gertaerek, denbora-adierazpenek eta horien arteko erlazioek (denbora-erlazioak, **aspektu-erlazioak** eta mendekotasun-erlazioak) zein forma hartzen duten aztertu dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere aspektu** (3); **bi aspektu** (3)
> **bi aspektuak** (4)

---

asper 1 *iz* asperdura.

Oixtian aipatu dudan "monotonia" erritmo lasai eta poetiko bilakatzen ari naiz: azken finean, gure baitan dauzkagu monotonia eta **asperra**. Piarres Aintziart

Irakurri ditut gutun horiek, irentsi dut gutunok sortzen duten **asperra**. Jon Muñoz

Aste batzuetan iraun zuen beroaldia, eta gero ezereza, **asperra**, dezepzioa... Zapuzte hori bereganatu ezina apika, bere horretan onartu ezina. Iñaki Iñurrieta

Nekea zuten agian, **asperra** zuten agian, nagia zuten agian. Felipe Juaristi

Eskolako bizimoduaren **asperra** egun batez behintzat haustea erabaki nuen. Irene Aldasoro

Errietan hasi ginen, eta Ray laster sentitu zen berriz ere eroso, eta ahaztu zitzaion mendian ibiltzearen **asperra**. Koro Navarro

Bisitek ere hausten zuten 15 azken egun haietako **asperra**. Marzel Etxehandi

Baldin nire gutunen nondik norakoak jakin nahi bazenitu, nire jatorrizko izkribuak irakurtzera ohitu beharko zara: zeren ezinen bainuke irentsi gutunok berriro kopiatzeko **asperra**. Jon Muñoz

Ez, fisikoki ez nengoen ongi, baina ezta psikologikoki ere, asealdien ondoko hutsuneak gero eta handiagoak egiten baitzitzaizkidan, **asperrak**-edo jota. Joan Mari Irigoien

2 *asper-asper eginda* *(ETCn **325** agerraldi) adlag* erabat aspertuta.

Asper-asper eginda hilko gara hemen! Fernando Rey

Juanito Telleria-k, Jauregiko presaren aldaparoko petrilean eserita (**asper-asper eginda**, suposatzen dut), haurrekin solas-tea maite zuen. Joxe Azurmendi

Hobe hago hemen, eta ez espaloi hartan **asper-asper eginda**. Karlos Zabala

Horrela egiten dutenek laster klasera joateari ere uzten ziotek, fonetikarekin **asper-asper eginda**. Jokin Muñoz

Egia da pailazo barregarria naizela arratsalde batez, eta gero, hilabetez, **asper-asper eginda** egoten direla nitaz. Josu Zabaleta

Azkenean, zazpigarren egunean, andrearen temaz **asper-asper eginda**, erantzuna esan zion Sansonek, baita emazteak berehala herritarrei jakinarazi ere. Jose Antonio Mujika

Ez zen behin bakarrik ere kexatu, ez zuen txintik ere esan, eta **asper-asper eginda** utzi nion zigorketari. Karlos Linazasoro

Asper-asper eginda bukatu nuen Londrestik niretzako eskutitzik ba ote zen postariari goizero galdetzeaz. Antton Olano

Telebistari begira **asper-asper eginda** egon, besterik ez. Aitor Arana

Baina **asper-asper eginda** nago zerbitzaria izateaz. Lopez de Arana

Cesar Telleria **asper-asper eginda** zegoen hiri itogarri hartako kaleetan bata bestearen segidan gainera botatzen zitzaizkion etorkizun igarleekin. Harkaitz Cano

-Jainko maitea! **Asper-asper eginda** nauka, Mikel; obarioetaraino, gaizki hitz eginda. Patxi Iturritegi

Cesareok esan dit **asper-asper eginda** zegoela hainbeste galdera egin eta, ordainetan, beste hainbeste zentzugabeko erantzun jasotzeaz. Josetxo Azkona

Horrela konturatu naiz Auschwitzen ere **asper-asper eginda** egon zaitezkeela -pribilegiatuen artean egonez gero. Urtzi Urrutikoetxea

3 *asper asper egin*

Wilma atsegina iruditzen zitzaidan hasieran, baina mutilez besterik ez daki hitz egiten egun osoan, eta **asper-asper egiten** zaitu azkenerako. Josu Zabaleta

Makurtu egin zen, **asper-asper eginik** ematen zuela, eta oina azaletik ukitu zion mahai azpian. Monika Etxebarria

Husainik eta haren predikuek **asper-asper egina** utzi zuten. Patxi Zubizarreta

Ez dugu urik, ez jakirik, eta mana delako janari kaskar honetaz **asper-asper eginak** gaude! Elizen arteko biblia

4 *asper-asper egina* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Jendea, oro har, **asper-asper egina** dagoela dirudi politikoekin. ETC-prentsa

Aurreiritzi horretaz ere **asper-asper egina** nago, oro har bikainak iruditzen zaizkidalako ikus-entzunezkoetan diharduten itzultzaileak eta bikainak, halaber, bikoiztaileak. ETC-prentsa

Asper-asper egina nagoela eta nik beste taldekideekin aurrera egin dudala? ETC-literatura, saiakera

Haren etxebizitzak gazte ezkongai batena zirudien, eta **asper-asper egina** zegoen, urtebeteren buruan. ETC-literatura, saiakera

Husainik eta haren predikuek **asper-asper egina** utzi zuten. ETC-literatura, saiakera

Baina jende guztiari esango diot... oraintxe bertan esango diet... nola utzi nauen, alde batera... zeinen gogor aritzen den... ni bidaia honetara etorraraziz... **asper-asper egina** ... oraintxe bertan esango diet... ETC-literatura, saiakera

Kontaiozu edozer gauza... harekin jolastu nahi duzula, bestela **asper-asper egina** egoten zarela... eta gero eskatu paperezko orri batzuk eta boligrafo bat. ETC-literatura, saiakera

Ulertzen dut bikote bizitzaz **asper-asper egina** egotea, kontrakoa miresgarria litzaidake, sinestezina hobeki esan, baina berriro ere uztarpean bizi nahi izatea? Mario: Zu ehiztaria zara, ehizakia harrapatu, eta larrutu egiten duzu, Ruben, gero zakarrontzira botatzeko; ni, ordea, nekazaria naiz, emakume batekin maitemindu, eta [...] ETC-literatura, saiakera

Bitxi koroa handiak begiak estaltzen zizkion, zeri begiratu askorik ez baina: zetaz eta urrezko tuniketan murgildurik, Hiri Debekatuaren itzelean **asper-asper egina** beti, hura bere jauregi, hura bere espetxe, eunuko saldoz beti inguratua. ETC-literatura, saiakera

Asper-asper egina zauzkan gaia. ETC-literatura, saiakera

5 *asper-asper eginik* *(ETCn **6** agerraldi)*

Asper-asper eginik zegoen Maiza kaleratzen ikusi zuenean, giharrak sorgorturik zeuzkan, goizeko umorea zeharo galdurik eta giroaren hezetasuna barruraino sarturik. Migel Angel Mintegi

Makurtu egin zen, **asper-asper eginik** ematen zuela, eta oina azaletik ukitu zion mahai azpian. Monika Etxebarria

Asper-asper eginik, ahoa bete hortz, etxera joan zen. Migel Angel Mintegi

Aitor dut abentura horrek ez dukeela zailtasunaren merezimendua; baina distrakzio bat izanen da bederen, **asper-asper eginik** bainago. Jon Muñoz

6 *asper eginda*

Baionako karriketan barrena ibili ohi nintzen, isilik, bakarrik beti, gora eta behera, osotara **asper eginda**. Txillardegi

Gezurra dirudi, baina When the stars go blue eta Touch, feel&lose kantuetan bikain ari zela, slide gitarrak lagundutako momentu politak ateratzen ari zen une berean, hainbat eta hainbat **asper eginda** ziren publikoan. Berria - Kultura

7 *asper eginik*

Ordenamenduan **asper eginik** ibili nahi ez eta, pentsatu orduko hautuan da: kaosean, suan, ustezko liberti-munduan..., bera izatearen kontzientzia ezabatuz doakion bitartean. Jose Angel Irigaray

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asper asper egina** (4); **asper asper egina** (4); **asper asper eginda** (29); **asper asper eginda** (29); **asper eginda nago** (4); **asper eginik** (3); **asper ez** (7)
> **asperraren asperrez** (4)

---

asperdura *iz adkor* aspertzea, aspertzen denaren egoera.

Eztabaidak gaizki amaitzen direnean, entzuten ez delako izaten da: arretaz entzunda, arrisku bakarra nekea da, edo **asperdura**, baina ez haserrea. Ramon Saizarbitoria

Asperdura arintzea zen, bada, nekerik handiena, erietxean egin behar izan nuen hilabete doian. Anjel Lertxundi

Egiazko hasierak, tronpeta soinu baten gisa agertzen, jazz doinu baten lehendabiziko noten gisa, bat-batean, **asperdura** eteten, iraupena sendotzen; gauen arteko gauak, zeinei buruz esaten den ondotik: "Paseoan nenbilen, maiatzeko gau bat zen". Monika Etxebarria

Gisèlleren etxetik hartu dut liburua gaur goizean, ia konturatu gabe: banekien itxaronaldi luze samarra egin beharko nuela, eta **asperduraren** aurkako antidoto gisa lapurtu diot. Iban Zaldua

Nire begirada beheraka doa geldiro, **asperduraz**, kopeta honetara, masail hauetara: ez du ezer irmorik aurkitzen, hondoratu egiten da bertan. Monika Etxebarria

Otsotzarmendi jauna barre txikitan hasi zen; Edurtxo Caterpilar azazkalordeez hazka eta hazka ari zen harkarte aldean, **asperduraren asperduraz**. Karlos Linazasoro

Bertze nonbait irakurri edo aditu ez badut, gogoeta ene baitatik aterea da: gizonezkoen adiskide talde batek, zenbat lagun, horrenbertze tasun -edo keria- nahi ditu, kolore bakarraren **asperdurari** itzuriko bazaio. Aingeru Epaltza

Esaldiak, harritu ordez, erredakzioan genuen kazetaririk asmotsuena ekarri zidan gogora: gutuna ezin zitekeen Danelena beste inorena izan; eguneroko bizitzaren **asperduratik** ihes egiteko hark erakusten zuen lotsa gutxiko ganoraren beste asmazio bat zen, inondik ere, gutun hura. Anjel Lertxundi

Antonio bera ere, arruntean ororendako ezaxola, bere begi beltzen **asperdura** malenkoniatsu guztia eskaintzen ari zitzaigun, programatu gabeko sugetzarraren ikusle. Aingeru Epaltza

Sakoneko **asperdura**, existentziala, haserrea ia. Eider Rodriguez

Inoiz ez zenuen duda-mudarik ñimiñoena ere azaldu, ez neke-arrastorik ez **asperdura**-zantzurik. Xabier Mendiguren Elizegi

Errejistro-zerrendan emaitzak lerroka luzatu ahala, lan errepikakorraren neke-**asperdura** poz-pilpira bilakatuz zihoan. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asperduraren aurkako** (3)
> **asperduratik ihes** (3)

---

aspergabe **1** *adlag* aspertu gabe.

Honek herriak amorruz jotzen zituen, **aspergabe** jo ere; nazioak suminez zapaltzen zituen, etengabe pertsegituz. Elizen arteko biblia

Aspergabe ibili zara hainbat eta hainbat kontseilarirekin: betoz, bada, salba zaitzatela, zerua aztertu eta izarrak ikertzen dituztenek, hilero etorkizuna iragartzen dizutenek! Elizen arteko biblia

Kristoren pobretasun eta apaltasunaren jarraitzaile sutsu bezala azaltzen zaigu, denentzat eredu izateko gogotsu, anaiei hitzemandako bizimoldean leial irautera deitzen **aspergabe**. Askoren artean

2 *izond*

Geroxeago, unibertsitateko egun **aspergabeetaraino** hegaldatu zen ustekabean, eta ohartu bere bizitzaren hastapen axiomatiko eta proposizio esistentzial osagabeak izen

bat zeukala, eta izen hori zen Ur De la Piscina. Iñaki Segurola

---

aspergaitz *izond* ia aspertzen ez dena.

Berehala konturatu nintzen eskuzabala zela, sotila, eginbidean **aspergaitza**, adoretsua, harropuzkeria puntua eta guzti, baina bazuen halako betizu eta basati tasun bat. Juan Garzia

Nire lana gainbegiratzen zuen; agindu eta aholkuak ematen zizkidan hurrengo asterako, eta kimikari ezin hobea eta ikerlari **aspergaitz** zorrotza zela egiaztatzeko aukera izan nuen. Juan Garzia

Bortz urte geroago lotu zitzaizkion berriz ere elkarri Karlos eta Frantzisko **aspergaitzak**. Aingeru Epaltza

Bere handitasunaz gain beste ezaugarri batzuk ere agerian uzten ditu obra honetan: hausnarketarako gaitasuna eta zaletasuna, etengabeko hobetzearen grina, zenbat gustatzen zaizkion arriskua eta desafioa, jokoa nahiz jolasa, zenbateraino maite duen bertsolaritza bere osoan, eta nola maitasun hau bizitzarekiko bere irrika eta interes **aspergaitzaren** errainua den. Andoni Egaña

Halako jendea, errurik aitortu baino lehen, bere ospearen pisua eta **aspergaitzena** ere asperrarazteko bere gaitasun bikaina botatzen ditu balantzaren platerean. Juan Garzia

Gizona, liburuzain moldegabea, halabeharrak edo demiurgo maltzurrek sortua izan daiteke; unibertsoa, ordea, apal sorta hain dotore hori, hainbeste liburu asmagaitz... eskailera luze **aspergaitzak**, bidaiazale denaren ibiltoki... komunzuloak, liburuzain eseriaren pausaleku... jainko baten obra baizik ezin izan liteke hori. Juan Garzia

---

aspergarri 1 *izond* aspertzen, gogaitzen duena.

Kolektiboaren filosofiaren arabera, "idazle **aspergarri** gehiegi dagoelako irakurtzen dugu behar baino gutxiago". Berria - Kultura

Grazi gutxiko kantaria bada ere, lan **aspergarriren** batean bakarrik ari naizela, pluxt! Patziku Perurena

Partidu **aspergarria** gaurkoa. Sonia Gonzalez

Hori ere ez baita soluzio txarra, egunerokotasun **aspergarriari** aurre egiteko. Joan Mari Irigoien

Gure ordulariak une honetan markatzen duen ordua -zoragarria, **aspergarria**, arrunta zein hutsala: gutariko bakoitzaren esperientziaren araberakoa, alegia- ultima multis da edo izango da guztiontzat: azkena askorentzat. Anjel Lertxundi

John Deek, aita aberats baten oinordekoa izaki, bazuen amets goxo bat: errentetatik bakarrik bizi, eguneroko lapikoa bete ahal izateko lanean aritu beharrik ez izan; egin beharreko lan bakarrak ikertzea eta ikastea eduki, beste eginkizun mundutar **aspergarririk** gabe; baina urte haietan aitaren eta beraren kartzelaldiarekin amaitu zen amets hura. J.M. Olaizola "Txiliku"

Batek ondo idazten zuen, bestea argazkilari ona zen, halako hura antzezle indartsua eta honako hau hiztun koloretsua, baina denek lan **aspergarri** batekin zokoratu zuten dohaina betirako, bizimodu gris batekin ilundu zuten euren distira-gune bakarra. Pako Aristi

Ahaideak jende-saldo **aspergarria** besterik ez duk: ez zakitek bizitzaz gozatzen, eta urrutitik ere ez ditek sumatzen hiltzea noiz komeni den. Antton Olano

Beren aldetik etxekandereek ere beren supazterra akulatu behar, bai janarien prestatzeko, bai eta etxearen doi bat berotzeko negu luze eta **aspergarrietan**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Alemania **aspergarria**, gogaikarria omen da. Edorta Jimenez

Baina orain, hartaz gogoetan ziharduelarik, istorio luze eta **aspergarria** irizten zion. Mirentxu Larrañaga

-Ba, martiriarena egiteko, atentzioa emateko, hire bizimodu **aspergarri** hori pittin bat alaitzeko, Llum berriro sarean harrapatzeko... Antton Olano

Ordubete lehenago ere triste zegoela iruditu zait, bizimodu **aspergarria** duela esan didanean. Eider Rodriguez

Antzezle **aspergarriz** betetako filma txar batean bezala, akzioa ikusteak soilik salba dezake pelikula, Patri. Hasier Etxeberria

Fraideenean, klaserik **aspergarrienak** probesten zituen bere maitemin betiere arrakasta gabeak errateko. Aingeru Epaltza

Dolmancé: Zin dagizuet ez dudala aluko gozamena baino gauza **aspergarriagorik** ezagutzen, eta behin ipurdiko gozamena frogatutakoan, zuk bezala madame, ez dut ulertzen nola itzul daitekeen besteetara. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Horrek berpiztu zuen nolabait ordura arteko afari **aspergarri** hura. Joxemari Iturralde

Mantxa, edo, hobeto esanda, Gaztela-Mantxa, izugarri leku **aspergarria** iruditu baitzitzaigun, xarmarik gabekoa, oporretan joan behar izanez gero, zerrendaren amaieran kokatzeko moduko aukera. Iban Zaldua

Teresak ez du orduz ordu errepikatzen den bizimodu **aspergarrira** makurtu nahi. Joxean Agirre

Geroago, emakume bat jo zuen begiz, eta inguratu zuen; dirua nahi zuen lasai bizitzeko, eta lortu zuen, lan **aspergarri** eta prosaiko batean hamar urte emanik. Juan Garzia

Eta horra non, berriz ere, ongi ordenaturiko karpeta eta dosierren itxura baketsu **aspergarriaren** azpian, espero ez nuenaren aurrean gertatu nintzen. Joxan Elosegi

-Departamenturik **aspergarrienean** lan egiten du -esan zion Ronek-. Iñaki Mendiguren

2 (predikatu eta adizlagun gisa)

Batzuetan **aspergarri** gertatzen da bere jardunean, euskararen baranoan gehiegi setiatua. Berria - Harian

Bestalde, eta zoritxarrez, nazio borrokaren edo klase borrokaren lehentasunaz geure betiko ika-mika **aspergarri** zaionari, artistaren engaiamenduaren gainekoa bezain nonahikoa dela erakutsiko dio liburu honek. Markos Zapiain

Neurotiko obsesiboak hain kezkaturik zaudete miresgarri azaldu nahiaz, non **aspergarri** bilakatzen zareten. Ramon Saizarbitoria

-Bide errazenak **aspergarri** bihur daitezken -erabaki zuen Arantxak. Fernando Morillo

-Aspergarri egiten zaizkit. Patxi Ezkiaga

Ilfracombe aldera itsasoratua zen Ronald Lady Moiran, eta zurrutean ariko zen taberna jendez betean, gogoratu ere egin gabe bere herrian, hondartzan, bakarrik eta burumakur ibiliko zela bere adiskidea arratsaldeko seietan, eta kapera bat bezain **aspergarri** zetorkiola gaua. Koro Navarro

Gehientsuenek galderak egiten zizkieten **aspergarri** izateraino: "Nongoak zarete?", edota: "Zein Ordenatakoak?". Askoren artean

Zuk zeuk ez deritzozu gaizki, baina **aspergarri** samarra da, ezta? Lutxo Egia

Ezin inork aski esan zeinen **aspergarri** den guztia. Ez da begia ikustez nekatzen, ez belarria entzutez asetzen. Elizen arteko biblia

Izan ere, nik bezalaxe, home run bat zer den doi-doi dakien batentzat **aspergarri** samarra suerta daiteke lau orduko beisbol partidu bat. Harkaitz Cano

Banekien sekretuak ezagutzeko bere grinaren berri, haiek baliatzen baitzituen besteei altxorra bezala eskaintzeko, **aspergarri** izan ohi zen bere jarduera interesgarri bihurtzeko ordubetez. Joseba Urteaga

Zu ez zara aspertu, ez zara **aspergarri** izan ere. Lourdes Oñederra

Denak ez, batzuk **aspergarri** samarrak iruditu zaizkit eta. Koldo Izagirre

Borrokan eta garrasika hasi zen eta oso **aspergarri** jarri zen. Iñaki Mendiguren

Hain ziren emakumeak **aspergarri**, esango zuen. Anton Garikano

Jin berriak zenbait oren **aspergarri** tronpatzen ditu. Marzel Etxehandi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aspergarri baino aspergarriagoa (3); **aspergarri egiten** (3); **aspergarri izan** (4); **aspergarri samar** (3); **aspergarri samarra** (16);bezain aspergarri (3); **lan aspergarri** (3)
aspergarri baino aspergarriagoa (3)
ezin aspergarriagoak (3)
aspergarriak iruditzen (3); **aspergarriak izan** (4); **oso aspergarriak** (3)

aspergarriki *adlag* modu aspergarrian.

Hau, hain justu, edo hipotesi honen ezinezkoa, zehatzago esateko, izan zen, hain zuzen ere, lehen krisia sorrarazi ziona, hipotesian zetzan ezintasun horrek agerian jartzen baitzuen, bere ankertasun gorrienean, oraingo honetan ezin izango zuela inorengan delegatu, eta norbera hiltzea kontu **aspergarriki**, higuingarriki eta kondenatuki pertsonala zela. Jon Alonso

aspergarriro *adlag* modu aspergarrian.

Horrelakoxe hitz irenduekin jostatzen dira **aspergarriro**, dena esan nahiko balute bezala baina deus esan gabe. Iñaki Segurola

Are gehiago esango nuke: izan ere, belarri-begietatik zuzen bezain bizi sartzen zitzaizkidàn marrazki haiek osatu zuten nire benetako Biblia, don Tasiok katekesian **aspergarriro** kontatzen zizkigùn pasadizoak eta ixtorioak bigarren mailan uzten nituela. Joan Mari Irigoien

aspergarritasun *iz* aspergarria denaren nolakotasuna.

Bata, "arrunt" epitetoa, zeinak ez arrazoirik gabe salatzen baitu, en passant, aberezain eta nekazarien lanei datxekien **aspergarritasun** ezinbestekoa, ez georgikak eta ez gure Don Segundo dagoeneko ospearen ereinotzez koroatua egundaino horrela, gori-gorian, salatzera ausartu ez diren **aspergarritasuna**, hain zuzen. Juan Garzia

aspergilo *iz* onddo generoa, berregun espezie inguru barne hartzen dituena*(Aspergillus)*.

Hor dituzu azinetido zurrupariak, beste infusorio batzuen protoplasma-gaia xurgatzen dutenak; hor dituzu **aspergilo** mota guztiak, usteltzen ari diren gaien gainean bizitzen. Josu Zabaleta

aspergura *iz* aspertzea.

Aspergura eta Hanley sarjentua ziren, nonbait, ordura artean haiek pairatu behar izan zituzten gaitzik okerrenak. Mirentxu Larrañaga

Hamidaren **asperguraz** jabetzen bazen ere, Abasek hitz egin beharra zeukan, neska galdekatu, eta neskaren sumindura eztitu antzean baitzegoen, kemena bildu, eta arranguraz mintzatu zitzaion: [...]. Patxi Zubizarreta

Hiztunek konbentzio batzuk izan behar dituzte batean, komunikazioak (linguistikaz landakoak zein linguistikoak) funtzionatuko badu: **asperguraren** seinaleetatik, bai-ezko galdera adierazten duen doinuraino. Lourdes Oñederra

Barealdiak jota geunden, zeru urdinen eraginpean, agian, edo **asperguraren asperguraz**. Mirentxu Larrañaga

asperkeria *iz adkor* aspertzea gaitzezgarritzat markatua.

Joko hura egunez egun jokatzea, orduan, malda gorako ekintza bihur dakiguke, ezintasunaren mugetaraino eraman gaitzakeena, non desesperazioa, etsipena edo, are okerrago dena, **asperkeria** amoranteen inguruan hegaldatzen diren, adur txarreko hegaztiak balira bezala, puzzlea noiznahi hankaz gora jartzeko asmotan. Joan Mari Irigoien

Izan ere, normaltasuna uharte bat da, zikoizkeriaren eta **asperkeriaren** marrazoek inguratzen dutena, bazter guztietatik. Joan Mari Irigoien

"Telebistarik ez, inkomunikazioa dakar eta" eta "Txinoen esperoan" ipuinek, irudiaren bitartekaritzari uko egiten dioten letralatra eta mistikoen desgaraiko egoera pintatzen digute: **asperkeria** frigidoa zein eldarnio paranoidea hurrenez hurren. Xabier Mendiguren Elizegi

Aldagai guztiak ezagutzen ditiat: modu artifizialean antolatutako bizimodu baten laguntzaz uxatu nahi duan **asperkeria**; bat-bateko krisialdi ustekabekoak. Xabier Olarra

Zenbaitek beren lehen asma atakea oroitzen duten eran, nire lehen **asperkeria** atakea dut nik gogoan, bost urte izango nituen. Harkaitz Cano

asperkizun *iz adkor* aspertzea.

Bat-batean, Vernerrek **asperkizuna** sentitu zuen. Jose Morales

Ez zuen beldurrik ez tristurarik sentitzen, baizik eta **asperkizuna**, **asperkizun** handia, astuna, gogaikarria, eta sentipen horretatik ihes egin nahi zuen, edonora joan, etzan eta begiak indarrez itxi. Jose Morales

asperkunde *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* **1** *iz* mendekua.

Mila bidebagekeri jasan nituan Fortunato'gandik ahal bezain hemeki, bainan iraintzen hausartu zatzaidanean, zin egin nuan nere kolkorako etzala libratuko nere **asperkundetik** ... ETC-prentsa

Asperkundearen aitzakiarekin presentatzen dut dimisioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 Ezen terrepentean jautsiko zaitzu haren hasarrea, eta galduko zaitu **asperkundeko** egunean. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 *(Euskaltzaindiaren Hiztegian adiera hau ez da agertzen) iz* asperraldia.

Berriro bere hirira itzuli, etxe zahar hutsean oinak arrastaka erabiliz hara-hona ibiltzeko edo **asperkunde** eta bakardadezko hilabete luzeetan ohe batean etzanda egoteko ideiak beldurtu egiten zuen. ETC-literatura, saiakera

Interesgarria izan liteke orduko nobedadeen berri ematea, irakurle zahar samarren oroiminerako eta gazteen **asperkunderako**. ETC-literatura, saiakera

aspermen *iz* aspertzea.

Oso komentatuak izaten dira, txiste asko daude horri buruz, eta **aspermena** ere sumatzen da jendearengan, batez ere puntu kritiko bat ukitzen duenean; hots, mozketa horiek telenobelen ordutegian egiten dituenean. Pako Aristi

Espainiako Ligan, emozioz ez dakit nola dabiltzan, baina **aspermena** gero eta hedatuago dagoen gaitza da. Berria - Kirola

Trenera igotzen zen oro nobedade bat zen niretzat eta aztertu egiten nuen, bidaiari berriek nire **aspermenari** zer eskaini ziezaioketen antzeman nahian. Pako Aristi

Badira San Valentin eguna gibela erretzeraino higuingarri zaienak, ezkontza bat jasan ezin dutenak, begirada okertzen dutenak bikote bat musuka ikustean, bazkaltzen ari den sendiaren **aspermena** desiragarri bihurtu zaienak, urte askotako ezkonkideak kalean elkarrekin doazelako bekaizti ibiltzen direnak, euren erraietan inoiz barkamenik tatarrena ere onartzen utziko ez dien kamusadak zapaldu zituenak. Pako Aristi

Zerena den ez dakien beldur baten mende bizi dena; bere hil-beharraren berri umetatik dakien piztia bakarra; irria, errukia eta eskerra (ona, jakina) asmatu zituena; hitzaren, denboraren eta **aspermenaren** kartzelan lotua; gauzei usain egin eta usaina hartu beharrean gauzak ulertzera (eta izendatzera, bataiatzera... dena alfer samarrik) tematzen dena; piztia beratua (hozbera, minbera, gaixobera, sentibera, bihozbera, sinesbera) edo beratzen jarritakoa... Iñaki Segurola

Aspermen isilera itzuli ziren. Fernando Morillo

Futbolik gabeko igande batean, edozein hil daiteke **aspermenez**. Berria - Kirola

asperraldi *iz* aspertze aldia.

Urriaren hasieran, ordea, beste zerbaitek bereganatu zuen Harryren arreta, eta zenbait eskolatako **asperraldia** konpentsatzeko oso ondo etorri zitzaion. Iñaki Mendiguren

Jakinaraz iezadazu bada zer gertatzen den eta zer behar dudan egin; ihes eginen dut bertzela, aldez aurretik dakusadan **asperraldia** saihesteko. Jon Muñoz

Lehen hiru-lau orduak astun samarrak egin zaizkit, baina azken tartean gauza batek guztiz konpentsatu du **asperraldia**: Ararat mendiaren zuritasun dotorea oso-osorik eta garbi-garbi begiesteko abagunea edukitzeak. Jon Arretxe

Gizarte Egipziako kolapsatuaren berezko bizialdiaren epilogo izugarri luzea **asperraldi** luze eta deabruzko kemenaldi asaldatuen txandaketa zen. Iñaki Mendiguren

Gustu lodiko pasadizo barregarriak, hildakoen istorioak eta gonapeko gorabeherak kontatzen aritu omen ziren haren hiletan, haren adiskide izanak, inori lur ematen zaionean sartu ohi den **asperraldi** itogarria uxatzeko nonbait. Josu Zabaleta

Jolasaldi, iz. **Asperraldi** tarte berezi bat, neke orokorra arintzeko. Xabier Olarra

---

asperrarazi, asperraraz(i), asperrarazten du *ad* aspertzera behartu.

Enara honek, Frantzisko Jainkoaren gizona predikatzen ari zen batean, hark isiltzeko agindu arte **asperrarazi** zuten haietako bat izan behar du. Askoren artean

Asper-asper egina daukazue Jauna zeuen hizketaz. "Zertan **asperrarazi** dugu, bada? Elizen arteko biblia

Utzi bakean neska, nahikoa **asperrarazi** haunat. Migel Angel Mintegi

Nik bera **asperrarazten** neure bizi-eskarmentuaren kontakizunarekin, eta berak ni zahar sentiarazten, goizetik arratsera nonahi nigandik espero bide zuen suhartasunarekin. Joxe Austin Arrieta

Nahi dinat, istorio zaharrek **asperraraztea**, ulertzekoa dun. Eneko Bidegain

Sermoia entzun, miraria ikusi eta bedeinkazioa hartu ondoren, jendetza erretiratu egin zen, hura gehiago ez **asperrarazteko**. Askoren artean

Halako jendea, errurik aitortu baino lehen, bere ospearen pisua eta aspergaitzena ere **asperrarazteko** bere gaitasun bikaina botatzen ditu balantzaren platerean. Juan Garzia

---

asperrezin *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi) izond* ezin aspertuzkoa.

Hantxe sumatu ditut irakurle **asperrezinak**, idatzi batetik bestera etengabe igarota. ETC-literatura, saiakera

Hizlari **asperrezina** da; harrituta nauka bere memoriak: honenbeste leku izen, horrenbeste mapa, hainbeste xehetasun. ETC-literatura, saiakera

Sarritan gertatzen zitzaion, aparteko erabakiren bat hartu aitzin, deliberoa alda daitekeen azken uneraino zalantza egitea, batzuetan ziurtasun ezak bultzatuta, gehienetan hobeto egin nahi **asperrezinak** gidatuta. ETC-literatura, saiakera

Ikastolak sortu zirenerako berak bide luzea egina zuen euskal irakaskuntzan eta langintza horretan jarraitu du beti leial eta **asperrezin**. ETC-literatura, saiakera

Ez dago beste azkenagoko hiriaren legitimazio eta arrazoirik, eta Sokrates galdezkari **asperrezinak** hil egin beharko du, jendea bere azken galderekin zalantza existentzialetan ez amilarazteko. ETC-literatura, saiakera

Horiek eta beste asko zor dizkiogu Olaberriko seme langile **asperrezin** eta kezkatiari. ETC-prentsa

JOSE MARI.- (Berekiko) Hara! Bukatua izango dik! Hori duk, hori, erretolika! Hizketan ez ezik, idazten ere iaioak eta **asperrezinak** dituk elizgizon hauek... ETC-telebista

---

aspertasun *iz* aspertzea.

Desertuak, jakina, onartu egiten zituen, baina ez hutsaren truke edota amoroski, baizik eta, Le Goff historiagileak ondo adierazi zuenez, ordain gogor baten aldera: anakoretek aurre egin behar izaten zioten, hala, ordu luzeen **aspertasunari**; **aspertasunari** eta, Elizaren Gurasoei sinisten badiegu, egoera horretan deabruak ekarritako irudi tentatzaile eta fantasmei. Bernardo Atxaga

Aspertasuna sinesmena ordezkatzen duen gaitza duzu. Patxi Zubizarreta

Porrotak, aldiz, inkoherentzia, **aspertasun**, eta batez ere hutsalkeria giro batean beratzen ditu gizonak. Josu Zabaleta

---

aspertoki *iz* aspertzeko tokia.

Asko ezagutu izan ditut horrelakoak, taberna bat gauza asko baita: helmuga, egonleku, **aspertoki** edo pasabide. Pako Aristi

---

aspertsio *iz* zerbait ur tantotan barreiatzea.

Urez egiten da, bi modutara: inmertsioz edo murgiltzez, eta **aspertsioz** edo zipriztinez. Xabier Olarra

Ebazteko hobe den inmertsioa // ala aski ote den **aspertsioa** // Urperatuok, zipriztinduok // Bibliaren baimendun bertsioa. Xabier Olarra

---

aspertu, asper(tu), aspertzen *(ETCn **11.739** agerraldi)* **1** da/du *ad* zerbaitek edo norbaitek norbaitengan gogo nekadura edo gogaitasunezko sentipena sortu; adorea galdu.

Andaluziako larreez **aspertzen** zenean ardiak saldu eta marinel egingo zen agian. Xabier Aranburu

-Aspertuta dago -esan zion. Iñaki Mendiguren

-Badakit, bai: "Ez hainbeste altxatu besoak"; **aspertzen** ari ote zarete, bada? Jon Muñoz

Aspertu ere egin nauk zortzi-hamar egun honetan zain. Txillardegi

Kexu izaten ziren nire senideak eta ama, mendiko oporleku haietan eta aparteko etxe haietan **aspertzen** zirelako: han ez omen zuten ez jostagarririk ez lagunik. Fernando Rey

Aspertu arte harekin jolastu denean, akabatzea erabaki du. Itziar Otegi

Horregatik, ez naiz **aspertuko** zuei gauza hauek gogorarazten, nahiz eta zuek jakin eta irakatsi zaizuen egian sendo egon. Elizen arteko biblia

Apur bat **aspertuta**, ez duzu uste? Lopez de Arana

Ordu luzeetan egon liteke edonor hemen, ingurura begira, batere **aspertu** gabe. Jon Arretxe

Ordubete berandu eta Kat tabernan itxaroten, **asperturik**. Sonia Gonzalez

Beste batzuek zakurrarekin **aspertu** egin direlako edo zahartu egin delako eramaten dute zakurtegira. Gotzon Garate

Federico batere begikotasunik eragiten ez zion nire aurpegia etxean ikusteaz **aspertzen** zenean, neska ilehoria ni herrira eramaten hasi zen, bere familiakoekin egotera. Pello Lizarralde

Dagoeneko **aspertzen** ere hasiak gintuan. Pedro Alberdi

Ehiztarien gutiziak, garizumako sermoi luzeetan **aspertuta**, asmatuak, akaso? Pello Zabala

Eta, gainera, **aspertua** nago burura datorkidana isiltzen, eta har ezazu kontuan sekula ez zitzaidala atsegin izan horrela aritzea, eta gutxitan jokatu dut horrela, baina aldi gutxi horiek ere gehiegi dira niretzat. Karlos Zabala

Tira, ez gaitzak gehiago **aspertu**. Patxi Zubizarreta

Osabaren telebista hantxe zegoen, baina **aspertzen** hasia zen auzoko umeen etengabeko bisitekin. Juan Kruz Igerabide

Eta halaz guztiz, adiskideak, utzidazue digresio pixka bat egiten eta barkatu **aspertzen** bazaituztet: ojala lehengo hauts izpiak bagina gaur! Matías Múgica

Aspertu egiten zen. Joseba Urteaga

Gona bat, zahartu ahala edo harekin **aspertu** orduko, erretiratu egiten duzu. Anjel Lertxundi

Aspertu egiten naute kontu horiek guztiek, film kaskar eta luzeegi batek bezainbeste. Hasier Etxeberria

-Aspertua ote zara ni hemen nagoelakotz? Janbattitt Dirassar

Lau mende badira gizonek hexagonoak **aspertzen** dituztela... Juan Garzia

Ez da beraz nehor **aspertzen** edo enoatzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hiru urrats atzerago andre-laguna joan ohi zen, beltzez jantzitako andre bat, makurtu antzean ibiltzen zena, hain presaka ibiltzez **aspertua** balitz bezala. Xabier Olarra

Bigarren zatian, Helen eta Fiona bezain **asperturik** zaude. Lutxo Egia

Aspertzen nauzu, adiskidea... Karlos Zabala

Aspertu arte astindu zaitu, gupidarik gabe. Rafa Egiguren

Baina mikak, **asperturik**, ez zion inori irakatsi bere abildadea, otoi egin zioten arren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aspertu egingo al zintuzke nerekin etortzeak, Tansley jauna? Anton Garikano

Uste diat gaur ez garela **aspertuko**. Fernando Morillo

Ez zaitut gogoz kontra gerarazi eta **asperrarazi** nahi. Mirentxu Larrañaga

Kartel haiek begiratzeaz **aspertu** zenean jendeari so egiten hasi zen. Iñaki Zabaleta

Esan niean basomutil ari haizela, baina **aspertzen** hasia haizela lanbide horretaz eta zera nahi huela, ekintza handiagoko lanen batean jardun, alegia, "aberriaren aldeko eginkizunen batean parte hartu". Alberto Ladron Arana

Baina, beste Liburu batean sartu baititut gauza horiek eta ere ez baitzaituztet orain luzeegi izanez **aspertu** nahi, erabaki dut hemen horretaz besterik ez erratea. Piarres Xarriton

Entzulea zerekin gozatzen ari den eta zerekin **aspertzen** epaitu behar du bere kabuz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Langabezian nagoenetik, batzuetan pixka bat **aspertzen** naiz. Eskarne Mujika

-Ez naiz **aspertua** zuekin! Menane Oxandabaratz

-Gaixoak! -erran zien Ninak **asperturik**. Ramuntxo Etxeberri

Emaztea errainarekin garatzen ziren pataska etengabeez **aspertuta** zegoen. Itxaro Borda

Aspertu egiten ninduten lotutako bezeroek. Joxan Elosegi

- Ez dut uste ezer larria izango denik -Pili, botikaria, **asperturik** dago. Eider Rodriguez

Gazteak izan arren, halako eszeptizismo bat sentitzen zuten guztiarekiko, bizitzaz **aspertuak** egongo balira bezala. Aritz Gorrotxategi

Jende asko aldatzen da maitalez, honetaz edo hartaz **aspertuta** dagoenean, zergatik ez. Javi Cillero

Dena sailkatzeko zuen behar obsesiboak begiradak berak ere klasifikatzera eraman zuen Cesar Telleria, ez **aspertzeko**. Harkaitz Cano

Gora eta behera ibili behar **aspertzeraino**, loak hartuko badu. Arantxa Iturbe

Oinez ibiltzeaz **aspertzen** naizenean, liburudenda batera joaten naiz goizero. Harkaitz Cano

Honekin guztiarekin **aspertzen** hasia nintzela, atzera gorde du luma. Urtzi Urrutikoetxea

Ez dio gauza handirik esaten bere lanbideaz, ez du **aspertu** nahi-eta. Oskar Arana

Ez naiz sekula **aspertzen** haren eskuak oihalean sortzen duen irudi berriari segika. Hasier Etxeberria

Nekatzen hasia nengoen, nekatzen eta **aspertzen**. Jasone Osoro

Horrek **aspertzen** zuen, eta hortik seriotasuna. Jon Alonso

Alargundu zenetik, eta baziren hamar bat urte aitona hil zela, ez zuen, berak halaxe zioen behintzat, **aspertzeko** astirik izaten. Anjel Lertxundi

Ezer gertatzen ez zela ikusi zuenean, atzera berriz zurrungan... ez **aspertzearren**, noski. Joxe Austin Arrieta

Aspertu, ez nintzen **aspertzen**; nire bizitza bost axola zitzaidala, hori zen guztia. Jesus Mari Mendizabal

Zer mugitu pentsatzeaz **aspertuta** edo, bestetara lerratu zaio pentsamendua. Imanol Zurutuza

Beirarekin ordu betez borrokan **aspertu** ondoren, nazkaturik eta umiliaturik geunden. Juan Garzia

Eta horrela, oinazez beterik, auzokoak ere **aspertuta** zeuzkan bere etengabeko uluekin. Askoren artean

Sagarduik beti egin behar izaten zion aurre Otalorari, ez genuen **aspertzeko** arriskurik. Koldo Izagirre

Eta luze lo egin ahal izango zuten, baina Peter **aspertu** egiten zen lotan, eta laster hasten zen oihuka, kapitain-ahotsa jarriz: Julen Gabiria

Kezka datorkie bat-batean, kontu-jalea **aspertu** izango ote duten beldurra, eta asperduraren aurka ezagutzen duten erremediorik onena eskaintzen dute: edatekoa eta jatekoa. Arantxa Iturbe

Eta biekin **aspertu** nintzen. Joan Mari Irigoien

Aspertzen nintzenean, etxejabeen etxera joaten nintzen, Yonsuk andrea ikustera. Juan Kruz Igerabide

2 (era burutua izenondo gisa)

Gainontzeko guztia burges **aspertuen** joko merkeak iruditzen zaizkit. Iñaki Arranz

Duela bi aste ikasgela batean zegoen, aberriko gazteria **aspertuari** aditzen aspektu burutuaren eta burutugabearen arteko aldea azaltzen, edan dut eta edan ohi dut aditzen artekoa, erretzen da eta erre da aditzen artekoa. Oskar Arana

Emakume-arropaz jantzitako hezurdura bat eromenez bihurritzen zen, mahaiaren inguruan jirabiraka, sorbalda hezurtsuei abiada ikaragarrian eraginez, eta gero berriro isiltasuna, ordena, beltzez jantzitako emakume eratsuak, gizonezkoen aurpegi **aspertuak**. Jose Morales

Umorearen bidez zabaldu zuten euren kritika: Planak hiriburu **aspertua** du xede, toki monumentala eta postaletan distira egin dezan, baina elkar topatzeko nahiz elkartasunerako lekurik gabea. Txema Ramirez de la Piscina

Kapela eserleku baten gainera jaurti eta gizon **aspertuaren** aurpegia jarri zuen. Koldo Biguri

Ez nion jaramonik egin ate aurrean aparkatuta zegoen jeep militarrari, gidari **aspertua** bolanteari helduta zeukala. Jon Muñoz

Goizeko langileek alde egindakoan erretiratuak agertzen ziren, zaharren etxean baino denbora-pasa hobea nuela-eta; geroxeago langabetu **aspertuak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Eguzkia noiz sartuko zain, hantxe zegoen zirkulu triste hartan beren profetaren atzeko zeruko puntu batera begiratzen zuen emakume **aspertuen** ondoan, eta goiza itzul zedin desiratu zuen. Koro Navarro

Eta gure agintariek munduari belauntzi batean buelta eman dion abenturazale **aspertuari** omenaldia egingo diote. Pako Aristi

Apustugileak berriz, gizajo jendea ziren, gutxik zuten esperientzia hura errepikatzeko itxura; beren bizitzarekin zer egin jakin ez, eta emozio berriak agindu zaizkien ludopata **aspertuak** besterik ez ziren gehienak. Harkaitz Cano

Nik, betiko legez, keinu **aspertua** egingo nuen eta nire logelan giltzapetuko nintzen, bere kexuak ez entzutearren. Sonia Gonzalez

Horregatik izango du, segur aski, **aspertu** itxura hori hirurok elkartzen garenean. Antton Olano

Eta zer esanik ez amaginarrebaren jardun **aspertuak**, isildu gabe jarraitu baitzuen erretolikan, auzoko guztien aurrean barregarri geratu zirela esaka: nitaz harro, atxilotu egin nindutela kontatu, eta mundu guztiak jakingo zuela ordurako manifestaldira joan ere ez nintzela egin. Ramon Saizarbitoria

Bigarren inguruan, herrokan, beltzez jantzirik, txapela buruan makurturik eta erietan urrezko eraztunak eki sortu berriarekin jostetan dirdiran, ezpainez keinu **aspertuak** marraztuz, martxandiza eskuaz haztatzen zuten. Itxaro Borda

Eta taberna hutsean tabernari **aspertuarekin** solasean emanen dituzu orduak, nobeletako mozkorren moduan, hau da, historiak eginez. Joseba Sarrionandia

Denak balakatzen zituen, baina asmo oneko ironia tonu batez beti, diren guztiak dastatu dituen hedonistaren jarrera **aspertua** hartuta. Koro Navarro

Neska atzeraxeago gelditu da, **aspertu** antzean. Jokin Muñoz

[...] Martxa hungariarraren pianorako egokipena jotzen zuen sarri eta kemen osoz, piezaren erritmo eta festa-giroaz hoteletik irten ere ezin zen jendearen aldarte **aspertuak** alaiturik. Anjel Lertxundi

Politikariak elkarren artean solas **aspertuan** ari ziren bitartean, asko eta asko buruari birak ematen ibili ziren. Berria - Harian

3 (era burutua izen gisa)

Bileretan ere erlojuari begiraka hasten zen lehenengo hogei minutuak bete orduko, eta handik aurrera hamaika modutara adierazten zuen bere **aspertua**. Bernardo Atxaga

Delineazio akademian matrikulatzera etorri naiz hona goizeko autobusean, baina ez naiz konturatu gaur larunbata dela eta itxia zegoen eta **aspertuan** egon behar izango nukeen goiz osoan arratsaldeko autobusaren zain eta horregatik jarri naiz auto-stop egiten bide bazterrean. Koldo Izagirre

Aspertu ederrak hartzen nituen hartan, baina ez nintzen horratik gogaitu, nire gogoa beste zerbaitetan erabiltzeko aukera bainuen. Joxan Elosegi

4 (adizlagunekin)

Nahikoa **aspertuko** zen hemen.' Joseba Sarrionandia

Ordurako, ni ez nintzen momentuan ohartu baina, Mari, guztiz **asperturik**, nonbait, autora erretiratua zen. Joxemari Iturralde

Bizi energia amiño bat etsitua, askitto **aspertua** eta ahitua, beste "orden" eta "kaos"aren arteko azeri-ezteien menturan... -. Jose Angel Irigaray

Aurki **aspertu** zen, ordea. Harkaitz Cano

Bakarrik egoteko gogoa zeukan, lasai **aspertzeko** beharra, azken aldaketei buruz hausnarketa serioa egiteko premia espirituala. Karlos Linazasoro

Hasieran, saiatu zen zertxobait baratzean, uraza, porru eta zerba batzuk jarririk, baina laster **aspertu** zen. Juan Kruz Igerabide

Liburuarekin eta kultur taldearekin asko **aspertzen** bazen begiratu bat egin ahal izango zion. Fernando Morillo

Ordu erdi baino gehiago zain neramala, batere autorik ikusi gabe eta jadanik **aspertzen** hasita, zuhaitz batera hurbildu eta pixa eginean hasi nintzen. Aitor Arana

Baina itsasoan ingeles ontzirik ageri ez, Laclos gogotik **aspertu** bide zen eta idazten eman zituen hango ordu luzeak; han izan zuten beraz sorrera "Harreman arriskutsuak" liburuko lehenengo gutunek. Jon Muñoz

Izugarri **aspertzen** ginen oporrak heltzen zirenean. Iban Zaldua

Segituan **aspertu** omen zen, ordea, eta Honorine eta seme-alabak alde batera utzirik, buru-belarri lanari lotzen zitzaion. Karlos Zabala

Maeder izeneko patroi batek hartu zuen; Jean haren lantokian, uste izan zuenaz kontra, oso **aspertu** zen, lau urtez piezak leundu, ez baitzuen besterik egin. Pablo Sastre

Azkenean, zeharo **asperturik**, barruan zeraman isilpekoa agertu zion: Jose Antonio Mujika

5 ***berba-aspertu*** hitz-aspertua.

Behin batean, Perok, Basurtokoarekin gerrako antzeaz **berba-aspertuak** egitera ganbarara etortzen zenak, liburuetarako nuen gogoa ikusirik, halako izkribu dotore bat eskaini zidan. Edorta Jimenez

· Azkar batean joan behar duk entrenura, baina badaukak denbora apur bat **berba-aspertutxo** baterako? Josu Landa

6 ***hitz-aspertu*** *(orobat* ***hitzaspertu****) iz*

Errautsezko esanak dira zuen **hitz**-aspertuak, buztinezkoak zuen erantzunak. Elizen arteko biblia

Horrek aukera emango digu **hitz**-aspertu polit bat egiteko. Lopez de Arana

Goiz batean, gosarian, **hitz**-aspertu eder bat hasi nuen, ikaslea nintzela esateko. Fernando Rey

Eta, hala, gerratik itzuli nintzenean, **hitz**-aspertu bat egin nian Krisztinaren aitarekin. Xabier Olarra

Elkarrekin izan genuen **hitz**-aspertuaren erdian, ametsa ekarri nuen jardunaren harira. Anjel Lertxundi

Hietzingeko etxeko gaueko **hitz**-aspertu haiek, maisu eta ikaslearen arteko jardunaren tankera hartu zuten. Xabier Olarra

Ez dakizu zenbat gauza jakitera irits zaitezkeen itxuraz interesik gabeko bizpahiru **hitzaspertu** egin ondoren. Jon Alonso

Irratietako **hitz**-aspertuak entzutea edota egunkariak irakurtzea. Bernardo Atxaga

Irrati edo telebistako **hitzaspertu** luzeetan. Pako Aristi

· Edonon, edozelan, **hitz** aspertuan aritu beharra. Paddy Rekalde

Eta itsas-haizeak aurpegia belztutako arrantzale batzuk **hitzaspertuan,** godalet lodiak harrigarrizko abiadan husten diren mahai baten inguruan. Berria - Kultura

· Nahiago nuke mutil gazte horrekin **hitz**-aspertutxo bat izateko modurik banu. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aspertu arte (23); **aspertu egin** (34); **aspertu egin nintzen** (6); **aspertu egingo** (12); **aspertu egiten** (85); **aspertu egiten da** (7); **aspertu egiten dira** (5); **aspertu egiten naiz** (8); **aspertu egiten nau** (5); **aspertu egiten nintzen** (6); **aspertu egiten zen** (6); **aspertu gabe** (12); **aspertu nahi** (10); **aspertu naiz** (11); **aspertu nintzen** (11); **aspertu zen** (13); **aspertu zenean** (6); **hitz aspertu** (32); **hitz aspertu bat** (10); **hitz aspertu luzeak** (5); **laster aspertu** (6)

aspertua nago (6); **hitz aspertua** (12)

hitz aspertuak (6)

hitz aspertuan (7)

asperturik zegoen (6)

aspertuta dago (11); **aspertuta egongo** (8); **aspertuta nago** (11); **aspertuta nengoen** (6); **aspertuta zegoen** (11); **aspertuta zeuden** (6); **jendea aspertuta** (5)

---

aspertuxe *adlag* aspertu xamar.

Aspertuxe dauzkagu eta bazterrak. Hasier Etxeberria

Espinosa, ordurako lehengusuak bonnes fortunes direlakoez eta joskintzaren aldaerez erakusten zuen interes nekaezinaz **aspertuxe**, nahiago izan zuen landetxean gelditu, bere testu-liburuekin. Juan Garzia

· Ezkondu 1556an Arrasatera, eta larrutan **aspertuxe** ondoren, Espainia eta Portugal guzitik hasi zuen jira, atzera sekulako paper pilarekin etxera itzuliz. Patziku Perurena

---

aspertzaile *(corpusean ez dago; ETCn* ***3*** *agerraldi) iz* aspertzen duena.

-Aspertzaile harroputz bat da. ETC-literatura, saiakera

Beste abesti batean aipatzen du; poetak? ez du esaldi dirdiratsuena? hiru emakume mota bereizi zituen: aspergarriak, **aspertzaileak** eta asperkorrak. ETC-prentsa

Egin dezatela administrazioak, eskolak eta gainerako bazter **aspertzaile** batzuek euskara batua, besteok euskara jatorra egingo dugu, komunikagarria. ETC-prentsa

---

aspertze *iz* zerbaitek edo norbaitek norbaitengan gogo nekadura edo gogaitasunezko sentipena sortzea.

Aspertze, iz. Higuina, aspertuta dagoenaren egoera. Xabier Olarra

Aspertze AB-k hitz jokoa egiteko Te Deum laudamus himno kristauarekin egiten du hitz jokoa; taedere latinez aspertzea baita. Xabier Olarra

Normalean, gogaitua dagoenak **aspertze** horren jatorria beste norbaiten edo zerbaitengan ikusten duen arren, norbere burua izan ohi da asperdura sortzen duena. Berria - Gaiak

Ez izan gogaikarria, zure **aspertze** kontu horrekin. Xabier Mendiguren Elizegi

---

aspiradora *(ETCn **76** agerraldi; orobat **aspiragailu** ETCn **131** agerraldi, **xurgagailu** ETCn **146** agerraldi, eta **aspiradore** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **xurgagailu** agertzen da) iz* hautsa eta kidekoak xurgatzeko erabiltzen den garbiketa tresna. ik **aspiragailu**; **xurgagailu**.

Gero, belauniko jarrita, kirtentxoa samur antzean oratu, eta **aspiradora** pasatzen hasi zaio grazia ederrean. Patxi Iturritegi

Umetan **aspiradoraren** atzetik ibiltzen nintzen, motorraren zarata epelaren atzetik. Damianek promes egin dio, bera arduratuko dela Leonen familia etorri baino lehen **aspiradorea** etxe osoan pasatzeaz. Unai Iturriaga

Aulki gogor batean jarri nintzen, ogitartekoa hortz arteratzean, nahigabe zeharrez lurrera erortzera uzten nituen mami "zikin" purruskak **aspiradorez** biltzen zituela Jessicak, zainetan irudiz, dei baten aiduru arauz? Itxaro Borda

---

aspiragailu *(ETCn **131** agerraldi; orobat **aspiradora** ETCn **76** agerraldi, **xurgagailu** ETCn **146** agerraldi, eta **aspiradore** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **xurgagailu** agertzen da) iz iz* hautsa eta kidekoak xurgatzeko erabiltzen den garbiketa tresna. ik **aspiradora**; **xurgagailu**.

Aldameneko bizitzetatik haurren garrasiak eta **aspiragailu** hotsak zetozen. Aingeru Epaltza

Aldameneko bizitzetatik haurren garrasiak eta **aspiragailu** hotsak zetozen. Aingeru Epaltza

Etxeko lanak: bazkaria, afaria, ontziak garbitu, oheak egin, **aspiragailua**, erosketak egin... Karlos Linazasoro

---

aspiraketa *iz* xurgaketa.

Beste batera joango naun -erantzun zion Koldok sudur zorrotzak **aspiraketa** labur eta sakonak egin bitartean-. Sonia Gonzalez

---

aspirante *iz* enplegu edo titulu bat lortu nahi duen pertsona.

Bere aurrean, buru lau, beltz eta biribil bat zeukala, Meltzar **aspirantea** ikusten ari zen. Pablo Sastre

Baita, klaro ederki gogoratzen zitzaiona: Meltzar **aspiranteak** burua galdu egin zuen eta, haren tokian istant bat lehenago Rékóczyren martxa jo zuen diskoa ezarrita zeukan. Pablo Sastre

---

aspirazio **1** *iz* zerbait lortzeko nahia izatea, helburua, xedea.

Kontzientziaren garapen halaxebeharrezko historiko eta sozialaren kontsidero honetatik, sentimendu edo emozio moralaren balioespen positiboago bat ere erdiets genezake, adibidez atentatu baten aurrean sentitzen den izialdura kolektiboa gaurko kontzientziaren alarma-zeinu batena bezala ulertuz; eta **aspirazio** edo itxaropen baten zeinua bezala orobat, agian egunen batez gaurko sentimendu subjektiboari kontzientzia objektibo bat egokitu izango zaiola, indargintza mota batzuk egotea aldeaurretik irrazionala bihurturik edukiko duena zin-zinez. Joxe Azurmendi

Nik **aspirazio** handienekin ekingo diot txapelketari, baina lehen helburua lehen partida irabaztea da, gainera aurkaria edozein dela bi partida jokatuak izango ditu eta hori abantaila handia da. Berria - Kirola

Dena den, nire **aspirazioa** zein den esan dezaket: taldeak tinkotasun mentala eta gogor lan egiteko ahalmena izatea. Berria - Kirola

Hori nire **aspirazioetako** bat da, euskaraz egiten duten jokalariak ulertzen ditut, hizketaldi osoak ez baina esaldiren bat edo beste ulertzen diet. Berria - Kirola

Izan ere, Vitruvioren komentarista modernoen arteko **aspiraziorik** handienetako bat, hain zuzen ere, berori "ilustratzea" izango zen, jatorrizko marrazkiak nolabait ere ordezkatzea. Santiago Iruretagoiena

Gizakume kontsumistaren **aspirazio** nagusia kontsumo merkatuko produktuez jabetzea da. Patziku Perurena

Kontakizunaren giroa eta dekoratua bera ere, hau da, Hurtadoren bizimodu praktikoa azken-azkenean, Barojaren **aspirazio** behinenen ispilu dira: gela argi bat, ordenatua, bere liburuak eta bakardadea, inorekin partekatzen ez duen mundu intelektual batean bildua eta bertatik bere eguneroko beharrak asetzeko baizik irteten ez dena: jateko eta hitz-asperturen bat edo beste egiteko besterik ez. Josu Zabaleta

2 *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **hasperen** agertzen da)* botatzen den airearen hasperentzea.

Ahaleginaren gutxitze gisa hartzen badugu **aspirazioaren** galera (cf. indoeuropar... m germ....), zer esan behar genuke alemanaren kasuan? Isabel Arrigain

---

aspirina *iz* sukarraren eta oinazearen aurkako sendagaia, azido azetikoa eta azido saliziliko osagaiak dituena.

Mendea hasi baino hiru urte lehenago, 1897an, Felix Hoffman eta Hermann Dreser-ek asmatu zuten ehun urte pasatu ondoren oraingoz osasun kontuetan arrakasta ikaragarria duen eta egunero erabiltzen dugun gauza txiki eta zuri bat: **aspirina**. Pello Salaburu

Aspirinak %20 gutxitzen du minbizi mota jakin bat garatzeko arriskua. Berria - Gaiak

Aspirinaren onurak zientifikoak dira. Joxerra Garzia

Substantzia batzuek, batez ere **aspirinak** eta alkoholak, mukosa ahultzen dute, eta urdaileko odoljarioarekin edo urdaileko ultzerekin lotzen dira sarritan. Irene Aldasoro

Presidenteak Kubako hezkuntzaz eta osasungintzaz hitz egin zuen, Habanan **aspirina** bat erostea zein zaila den aipatu gabe. Pako Aristi

Aspirina bat hartu behar dut oheratu baino lehen, biharko ajea baretuko badut. Unai Iturriaga

Buruko minari aurre egiteko **aspirina** hartzeko erreparorik izaten ez duen pertsona bat baino gehiago haserretu izan zait, erditze-minak ez jasateagatik, edozer gauza egiteko prest nengoela entzundakoan. Arantxa Iturbe

Aspirina irentsi eta gero ere lehengo aurpegiera desanparatuarekin jarraitzen du neskatxak, lasai baina tristerik, mataderiko hil-epaia onartu duen aberearen antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

Aitortu zidan Luisek **aspirina** bat eta kondoi bat eman zizkiola ni benefiziatzeko. Patxi Zubizarreta

Gauero buruko minez oheratzen bazara, gauero hartu beharko duzu **aspirina** bat. Joan Mari Irigoien

Itzultzean aitari galdetu zion: 'Aita, egia al da **aspirina** buruko minarentzat dela?'. Joan Mari Irigoien

Pepponek **aspirinak** irentsi eta ardoa edan zuen gero. Koldo Biguri

-Aspirina aginduko dik. Koldo Izagirre

Aspirina eferbeszenteen kaxa hor zen, nire ekarpen bakarrenetariko bat etxe horretako zuzkidurei. Aingeru Epaltza

Aspirina kaxetak balinbaditugu, guti, ebatsiak izanak dira etxekoek igorri paketetatik. Marzel Etxehandi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aspirina bat hartu** (3); **aspirina hartzen** (3); **bi aspirina** (4)

---

aspis *iz* sugegorri mota bat *(Vipera aspis)*.

Neure alabaz hitz egin diot, nola hila den, neure alabarekiko ezkonbidaiaz, Korintoz, **aspis** sugegorriaz, nola egin zion ausiki ezkerreko bularrean, eta alabaren ehorzketaz, eta neure etorkizunaz. Joxe Austin Arrieta

---

assamera *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi) iz* Indiako Assam estatuan mintzatzen den hizkuntza.

Assamera Indiako iparraldean hitz egiten den hizkuntza da. ETC-entziklopedia

Euren hizkuntza, **assamera**, indoariar familiakoa da. ETC-entziklopedia

Gaur egun hizkuntza indoariarrak bost talde nagusitan biltzen dira: ekialdeko taldea (**assamera**, bengalera eta oriya hizkuntza); ipar-mendebalekoa (punjabiera, lahnda, sindhia, paharia eta dardikoa); mendebalekoa eta hego-mendebalekoa (gujaratera, marathera, konkanera, maldivera, Sri Lanka-ko sinhalera). ETC-entziklopedia

---

asta **1** *iz* asto-ren aldarea hitz elkartuetan lehen osagai gisa.

Midasek **asta** belarriak ditu. Pako Aristi

-Berdin zaio -esan zuen morroiak-, horretan ez dago-eta oraingo auzia; **asta**-txalma ote den ala ez ote den, berauek diotenez; hori da guztia. Patxi Ezkiaga

Urde-simaurra aspaldi hildako **asta**-barren usteldueta bota ere ez zegoen berdintzerik mofeta-kirats hura. Anjel Lertxundi

2 (mendian edo hazten dena adierazteko)

Azkenean horizontalean zegoen... edo egon zen, zeren **asta**-tipularen hostoek harramazkatzen baitzizkioten lokia eta masaila. Anton Garikano

Ondoren teilatua eroriko zen; bidea, eskailera eta leihoa desegingo zituzten sasiak eta **asta**-perrexilak. Anton Garikano

---

astabelarri *(orobat **asta belarri**)* astoaren belarria. *iz*

Zer **astabelarriak** kanpandorre bi horiek! Koldo Izagirre

Bere garaikideek, eskolatik irtetean, iseka egiten ziotela (amultsuki) jaka-iduna ukabilaz **astabelarri** antza jasorik imintzioka, kantari: [...]. Juan Garzia

"Midasek **asta belarriak** ditu". Pako Aristi

---

astaburu *iz* astoaren burua.

Hain gogor setiatu baitzuen, izugarrizko gosetea izan zen Samarian; **astaburu** bakar batek zilarrezko laurogei txanpon balio zuen, eta kilo erdi uso-zirinek zilarrezko bost txanpon. Elizen arteko biblia

Bere laguna **astaburuaz** hornitua ikusi zuenean. Iñaki Mendiguren

---

astagaitz *iz* emakumearen hilekoari ematen zaion izena.

Emakumeen hilekoaren ordain **astagaitz** edo matxinatuarena erri-nasle ematen duten hiztegien zordun garen herrian bizi gara. Iñigo Aranbarri

---

astagardu ik **astakardu**.

---

astailar *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* Fabaceae familiako landare belarkara eta birakaria *(Lathyrus aphaca)*.

Astailarra ("Lathyrus aphaca") Lekadun Fabaceae familiako landare belarkara eta birakaria da. [...] **Astailarrak** lehorteak oso ondo pairatzen ditu. ETC-entziklopedia

Eta lila koloreko **astailarra** goratzen zen milorri zuriaren eta garadaizka gorriaren artean, lapa-belar urdinak loretan zeuden eta astakarduak ere bai. ETC-literatura, saiakera

Bide zaharrok noizbaiteko artegi eta esparru hondatuok **astailarrak**, oteak eta txarakak jantzi harrobi aspaldikoak hemen, edozein muino ta mendi-maldatako babesgunetxotan, bertan behera eta ahazturik, hauexek ditut nik lehengo gizaldi apalen lekuko maitagarri eta hurbil. ETC-literatura, saiakera

Larrakolako txabola txukuntzen, harako bideak pittin bat atontzen, mantzanila biltzen, pagadi-inguruko **astailarrak** mozten, noizbaitzutan perretxiko bila, egun batzutan zeramika-lanean, Lasturrek labea egin eta buztina ekarri zigunez gero. ETC-prentsa

Ditxosozko kahauataz gain, zalkea edo zuhain-zalkea (Vicia sativa) eta genero bereko Vicia anphicarpa, aixkolak (Lathyrus sativus etaLathyrus cicera), aitatutako Lathyrus anphicarpus, ilar usainduna (Lathyrus odoratus) eta Lathyrus aphaca, gure artean izen ugari duena: **astailarra**, manukilarra, txintxirria... ETC-prentsa

---

astaina *iz* asto emea.

Kakueneko **astaina** bilo luze hura, zakur trapatua ondotik, hiritarra bezala lasterka. Itxaro Borda

Habil hoa **astaina** handia. Itxaro Borda

---

astakaiku *izond* astoa (irain hitza).

Ez zaio axola nagusia behartsua edo aberatsa denetz, jakintsua edo **astakaiku** bat, txikia edo handia. Gotzon Garate

-Ba, nik ere esan dudanez -erantzun zuen On Camillok-, esan nahi dik muturjoka hasi beharko dugula, nahi baduk; horrela hik hartuko dituk hire Dynamos malapartatu horretako **astakaikuek** hartu behar zituztenak. Koldo Biguri

---

astakardu *(orobat **astagardu**) iz* kardu mota, lore horixak edo gorrixkak eta zurtoin arantzaduna dituena.

Astakardu: zami (cirsium japonicum). Ibon Uribarri

Eskoziarrek, esaterako, **astakardua** edo kardulatza dute ikur. J.M. Olaizola "Txiliku"

Basotxoa inguratzen zuen ezpondan, **astakarduak** eta ihintz-loreak loraldi bete-betean zeuden. Ibon Uribarri

---

astakeria *iz* astoari (irudizko adieran) dagokion egite edo esana.

Tristea da gero, konforme nator harekin, emakumeen ondra hankartean eramatea, bizi garen gizarte honetan gertatzen den bezala, hori **astakeria**, jainkoarren. Karlos

Zabala

Haietako birekin jo nuen larrua serio, baina besteei "Flamengo txapelduna", "souffléa prest dago", "txarra haiz gero ohean" eta burura zetozkidan beste **astakeria** batzuk esaten nizkien, ahopean beti ere. Karlos Zabala

Nahiago Biblia neronek irakurri eta egoki iruditzen zaidana pentsatu irakurri dudanaz, zuzenean nahi dut jabetu berri onez, eta ez entzun apaizei gripeak jotako ahotsaz inkoherentziak botatzen, nire adimena gutxiesten eta **astakeriak** errepikatzen, Pentateukon kastitateari eusteko manamenduak daudela lotsagabe adierazten dutenean bezala. Karlos Zabala

---

astakilo *iz eta izond Asto-*ren txikigarria. (batez ere pertsonei buruz, irain hitz gisa).

Astakilo horiek ez ditek sekula ulertuko nolako mintzoa darion orban gorri bati orban gris baten ondoan jarria dagoenean. Karlos Zabala

Hara hor ze jaio zaion orain burura **astakilo** horri, gerrara joatea! Joseba Sarrionandia

Astakilo galanta da. Lopez de Arana

-Edo zuek guztiok **astakilo** hutsak zarete, edo ni naiz astakiloa -esaten zuen, serio eta minduta. Jose Morales

Entzun, Txitxikov, **astakilo** hutsa haiz, bai horixe, **astakilo** hutsa; ez da hala, prokuradore jauna? Jose Morales

Zer uste duzu, gu **astakilo** gupidagabeen samalda bat garela, ezta Tony? Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **astakilo hutsa** (4)

---

astakirten *(orobat **asta kirten** g.er.) izond/iz adkor* ergela, adimen laburrekoa, kaikua, kirtena.

Herritar **astakirten** haiek ez ziren horren gaizki moldatzen ari eta polizia izugarri eraginkorra antolatu zuten. Joxan Elosegi

- **Astakirtena** izan behar da, gero, ihes egin nahi izateko! Eskarne Mujika

- **Astakirtenak** eta koldarrak garela, besterik ez digu esan -esan zuen Martinek barrez-. Koro Navarro

- **Astakirtenak** eta koldarrak garela, besterik ez digu esan -esan zuen Martinek barrez-. Koro Navarro

Mukizu **astakirten** horrek, pattarrarekin, tabakoarekin eta buztanari eragiten ez daukak nahikoa? Urtzi Urrutikoeetxea

Nik ez dakit nola arraio ezkon zezakeen Adelak bere eguneroko jokabide zuhurra **astakirten** harekiko harremanarekin, baina hori gertatu zen hain zuzen. Juan Kruz Igerabide

-Baina, **astakirtena** ! -oihu egin zion Léoni-. Karlos Zabala

Isilik egon hadi, **astakirten** hori! -esan zuen Txitxikovek. Jose Morales

"Hi haiz **astakirtena**, hi!", pentsatu nuen masailean hozka eginez. Jesus Mari Mendizabal

Zer egin diok umeari, **astakirtena** ! ekin zion errietan emakumeak, mingaina trabatzen zitzaiola. Berria - Kultura

Ezetz, **asta** kirtenak! Altxa aingura. Pablo Sastre

Ergela halakoa, **astakirtena** alaena, babo arraioa! -zioen Txitxikovek bere kolkorako. Jose Morales

Zera idatzi zuen -gaur egun inork ere ez luke sinetsiko, gizateria **astakirtena** da gero- nire birraitonak toteltasuna nola sendatu aurkitu zuela. Karlos Zabala

Katalana ez zen bere ofizioko herrikide gehienak ohi bezain handiustea; errioxarrak ez zituen egiati eta **astakirten** plantak egiten, eta andaluziarra ez zen tematzen graziak esaten. Josu Zabaleta

Astelehenean Il Professore-rekin izan zuen telebistazko eztabaidan, **"astakirten** " deitu zien ezkerreko boto-emaileei. Berria - Harian

"Eguerdiko ordu batean, jaun agurgarria", esan zioten **astakirten** adeitsu haiek. Jose Morales

Azterketak egin eta gero **astakirten** ezjakintzat nindukan maisuak, eta harritu egiten zen eskolara hitz zoragarri eta bitxiz betetako idazlanak eramaten nituenean. Pello Lizarralde

Familiakoa dut, baina, zaila bazait ere, onartu beharra daukat baietz, **astakirten** hutsa dela. Jose Morales

Astakirten madarikatua! Jose Morales

-Hi, **astakirten** alaena! Karlos Zabala

Gizaseme baten autoan sartzea oso-oso-oso gaizki ikusia zegoen, **astakirten** harroputz haiek, denak gezurteroak eta larru jo faltan, honelakoak esaten zituzten lotsagabe. Karlos Zabala

Eta, hain haserre bidezkoari barnean eusteko indarrik gabe, errepikatzen zuen: '**Astakirtena** galanta, bai horixe!". Jose Morales

Lehentxeago, ederrak entzunarazi dizkiot **astakirten** moduko bati, apropos ari baitzen ni zapaltzen, jendea jaitsieran edo igoeran pasatzen zen bakoitzean. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **astakirten hori** (3); **astakirten hutsa** (6)

---

astakume 1 *iz* astoaren umea.

Ez beldur izan, Sion hiri eder! Hara, badatorkizu zeure erregea, **astakume** baten gainean eseria. Elizen arteko biblia

Hara, badatorkizu zeure erregea, apal eta astotxo baten gainean, **astakume** baten gainean. Elizen arteko biblia

Zoazte aurreko herrixka horretara; sartzean, **astakume** bat aurkituko duzue lotuta, gainean inor jarri ez zaiona; askatu eta ekarri niri. Elizen arteko biblia

Astemea eta **astakumea** ekarri eta beren jantziak bizkarrean ezarri zizkieten, eta Jesus gainean eseri zen. Elizen arteko biblia

Mahastian lotzen du bere astotxoa, mahatsondoan bere **astakumea** ; ardotan garbitzen du soinekoa, mahats-zukuan soingainekoa. Elizen arteko biblia

Jesusi eramanik, beren jantziak **astakumeari** bizkarrean ezarri zizkioten, eta Jesus gainean eseri zen. Elizen arteko biblia

2 (irain hitz gisa)

Nik bakarrik esan dut Peppone **astakume** bat dela, kirolaren ikuspegitik mintzatuz. Koldo Biguri

Peppone ez balitz **astakumeetan** azkena, ez zuen jarriko zaplada-jotze hau egitarauan, Dynamos eta Bikainak-en arteko errebantxako partida baizik! Koldo Biguri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **astakume bat** (4); **astakume baten gainean** (3)

---

astalapiko *iz izond/iz adkor* ergela, adimen laburrekoa, kaikua, kirtena.

Izan ere, Pepponek esan zuen bezala, nahikoa izango zen **astalapiko** batek keinu ergel bat egitea "horren" kontra, erreakzioak munduko etekinik zikinena ateratzeko. Koldo Biguri

Eta **astalapiko** eskumikatu bat hara non etorri eta hamar milioi erortzen zaizkion patrikara zerutik! Koldo Biguri

---

astalar *iz* kardu mota arantzaduna.

Beste paraje batzuetan, bere barrutian **astalarra** eta kardulatza zituenak, eliz-dorrean gauerdiko lehen kanpaia entzun orduko, bere belazetik kardulatz bat atera eta mugante zuen etxadiko lurretara bota behar zuen, bere soroetatik belar txarra despatxatu nahi bazuen. Pello Zabala

---

astalarrosa *iz* basoko larrosa.

Ez zaitut nekatu nahi fakultatekoek oparitu dizkidaten **astalarrosekin**: astoa nabarmenago salatzen du arrantza bakar batek, arrantza egiterakoan ikusten zaion hortzeriak baino. Anjel Lertxundi

---

astalarru *iz* astoaren larrua.

Behin, Agrigento herriko mendi tarte guzia milaka **astalarruz** ixtea bururatu omen zitzaion, zertarako eta, siroko delako haizea honuntz pasa ez zedin.Horregatik bururatu omen zitzaion haize zikin hura honuntz pasa ez zedin, ibar guzia milaka **astalarru** elkarri josiz ixtea. Patziku Perurena

---

astalikardu *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)* **1** *iz* leku lehorretan hazten den kardu mota *(Silybum marianum)*.

Astalikardu ("Silybum marianum") Asteraceae familiako landare-espeziea da, mendebaldeko Europan jatorria duena. Herri medikuntzan, gibel gaitzak sendatzeko eta "Amanita phalloides"en pozoitzearen aurka erabiltzen dute. ETC-entziklopedia

Artzain Zakua, Txikori Belarra, Erromeroa, **Astalikardua**, Azeri Buztana, Malba... ETC-prentsa

Beste hainbat sendabelarrekin erabil daiteke: asuna, berroa, **astalikardua**, erromeroa... ETC-prentsa

Astalikardu saski bat utzi genien, ea trukean aitzurrak ematen zizkiguten, baina alperrik", dio umoretsu. ETC-prentsa

2 irud/hed

Gizon-kemenez hartzen dute kolpea, baina idazleak ez du lortzen, hala ere, senar eskuzabalak eta indartsuak direla pentsaraztea: **astalikardu** batzuk iruditzen zaizkigu, sentiberatasunik eta borondate onik gabeak. ETC-literatura, saiakera

---

astalkai *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* matazak hariltzeko tresna birakorra.

Bertan baziren Ameztoiko bi oroitzapen: piru egiteko **astalkaia**, baita egurrezko sehaska bat, azkenik niretzat baliatua izan zena. ETC-literatura, saiakera

---

astalkatu, astalka(tu), astalkatzen du *ad* harilkatu.

Madeleinek bilbe-orrazia itzulikarazi zuen, harien **astalkatzeko**, geldirik egon ezinik. Elena Touyarou

---

astalketari *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* astalkatzen duen pertsona.

Arropak ere **astalketari** onek landuak. ETC-literatura, saiakera

---

astalogika *iz adkor* astoei dagokien logika.

Eta ikusi dugu kontraispiluaren **astalogika** zuri-belztaile horrek zer eginarazten zigun: eskizofrenia lotsagarri bat saldu eta neurosi errukarri bat erosi. Iñaki Segurola

---

astama *(corpusean **astamea** soilik)* *iz* asto emea. ik **asteme**.

-Baliteke **astamearena** izatea ere -esan zuen apaizak. Patxi Ezkiaga

---

astamahats *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)* **1** *iz* kuiaren familiako basalandarea, mahatsaren antzeko fruituak ematen dituena *(Bryonia alba* eta *Bryonia dioica)*.

Bertan ikus daitezke, bizirik eta indartsu, pinu, haritz, astigar, urrebotoi, bostorri, lupulu, **astamahats**, huntz eta elorrien hostoak, loreak edo fruituak. ETC-literatura, saiakera

Astamahats "Bryonia" generoko hamabi espezieren izen arrunta da. "Bryonia" generoko landareak igokari kiribildun landare bizikor bizikorrak dira, dioikoak, hosto palmatu eta galtzarbeko lore talderekin. ETC-entziklopedia

2 ***astamahats ale-beltz*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Astamahats ale-beltza ("Bryonia alba") Cucurbitaceae familiako mahatsondoa da, Europan eta iparraldeko Iranen jatorria duena. Brionina duenez, toxikoa da. Berrogei fruitu nahikoa da gizako heldu bat hiltzeko. ETC-entziklopedia

3 ***astamahats ale-gorri*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Astamahats ale-gorria ("Bryonia dioica") Kukurbitazeo Cucurbitaceae familiako mahatsondoa da, erdialdeko eta hegoaldeko Europan jatorria duena. Brionina duenez, toxikoa da eta horrexegatik sendabelar moduan ere erabili dute. ETC-entziklopedia

---

astamaisu *iz adkor* maisu traketsa.

Geneukan **astamaisuarekin** eskola ikaragarri gogaikarria zen, eta han egoten ginen aulkietan kikilduta, tinteroa aurrean, sala ilun hartan, tinteroa baino sala ilunago hartan. Joseba Sarrionandia

---

astamaisukeria *iz adkor* astamaisuari dagokion esana, gaitzesgarritzat markatua.

Baina -egiten nuen neure artean- ba ote da horrelako **astamaisukeriak** sano-sano sinesten dituen giza alerik? Iñaki Segurola

---

astamakila *iz*

Eta landetan zehar taldeka zihoazenean, artzainek zakurrak xaxatzen zituzten haien kontra eta, hitzik esan gabe, beren **astamakilen** alde kamutsez etengabe jotzen

zituzten. Askoren artean

Ez zen ia ezer bazkaltzeko gauza izan, korapilo bat zuen eztarrian, ezaguna den sentsazioa da, urdailean **astamakila** edukitzea bezalakoa, ez da egunero gertatzen eta egoeraren larria adierazten du. Jon Alonso

Polizia militarraren besoko gorriak zeramatzaten, eta **astamakilak**. Juan Kruz Igerabide

---

astamenda *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)* *iz* menda mota *(Mentha x rotundifolia)*.

Beste izen batzuk dira: batana, **astamenda**, astobatana, kukusobelarra, mendeza, txortaloa, ardi-belarra edo erraldo-belarra. ETC-entziklopedia

Astamenda, esaterako, menta rotundifolia izendatzeko erabiltzen dute Irunberrin, eta burruskil, etxe azpiko korta txikia esateko. ETC-prentsa

Eskuera duen sendabelarren baratzean, menda nagusia mendazuria, **astamenda**, kukuso-belarra edo mendaurdina da, Mentha suaveolens edo Mentha x rotundifolia. . ETC-prentsa

Menda-belarra aipatzen duzunean menda zuria edo **astamenda** deitzen denaz ari zarela iruditzen zait, hau da, Mentha suaveolens. ETC-prentsa

Orain ere, hartu ditu batzuk Pradok: sapelarra, zain belarra eta **astamenda**, besteak beste. ETC-prentsa

Lagun flandriar bat etorri zaigu, eta erabat harrituta hor aritu da belar txorta bildu berriak miatzen: mendazuria, mendaurdina, inuntzia, peldoa, batana, ahamenta, **astamenda**, aizpatana, kukuso-belarra [...]. ETC-prentsa

---

astaña *(corpusean irain gisa soilik)* *iz* asto emea.

Gaineala eüskarak ez dü maskülino ez femininorik, salbuespen güti elibatez kanpo: artzaintsa, laborarisa, otsanda, urdanda, urdaña, **astaña**.. Herria

---

astanafarreri *iz* nafarreriaren antzeko pikor batzuk ateratzen diren eritasun arina, baztanga eroa.

-Duela hiru bat urte, gorputz osoa pikor gorriz bete zidan **astanafarreriak** harrapatu ninduenean, Dabiden amak ikustaldi bat egin, eta esan zidanean: "Gutxienez ez eman lan eta ardura handirik nire semeari". Patxi Zubizarreta

Gero eta itogarriagoa zen gobernu kolonialaren zerga-sistema; negu osoan jasandako piraten etengabeko erasoak erantsi behar zitzaizkion goseari; ehunka haur eraman zituen **astanafarreriak**... Anjel Lertxundi

---

astaperrexil 1 *iz* perrexilaren antzeko landare belarkara pozointsua.

Adibidez, ez da nahikoa Sokratesek, **astaperrexila** hartu baino lehen egindako diskurtsoko parafrasiaren bidez haren heriotza laburtzea edo azaltzea. Askoren artean

Sarritan ikusten baita, izan ere, gizakientzat pozoin gogorra den **astaperrexilez** bizardun aziendak gizendu egiten direla. Xabier Amuriza

Sugeak jaisten ziren pinuetatik eta **astaperrexiletatik**. Anton Garikano

Haizeak jandako lauza zahar hauen zirrikituetan, **astaperrexil** pozoitsua eta erabelarra hazten dira; udaberrian, txikoria-belarraren eta apo-belarraren lore horixkek, gladiolo gorrimin ederrek eta kuku-praka purpura-koloreek distiratzen dute pareten ondoan. Koro Navarro

Albaroren testuek **astaperrexil** gustua dute; Munch-ek zuen kolore paleta bera erabiliz, sexua, gaixotasuna eta aurpegi zurbilak marrazten ditu lan honetan, abiadaz mugitzen dira, diskoari darion karga elektrikoak eraginda edo. Berria - Kultura

2 *astaperrexil handi* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Astaperrexil handia ("Conium maculatum") edo otzarribedar Apiaceae familiako landare belarkara da. Bi urte irauten du bizirik. ETC-entziklopedia

Azken hau, Sokrates eta abar aurrean hartu eta jo eta akabatu zituena Conium maculatum da, geurean **astaperrexil handia** deitzen duguna. ETC-prentsa

Paraje horiek -izeiz eta baltsamo-izeiz, **astaperrexil handiz** eta pinuz osaturiko konifero-baso handiko arroek- bizirauteko behar dituen errute-tokiak eskaintzen dizkiote izokinari. ETC-literatura, saiakera

Konposatu hori amina toxiko bat da, eta **astaperrexil handiak** du kantitate handitan; hain zuzen ere, konposatu horrengatik du landareak pozoitsu-ospea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Heriotzorria, abrus precatoriusa, akain belarra, datura, kolkikoa eta **astaperrexil handia** landare pozoitsuen adibideak dira. ETC-literatura, saiakera

3 *astaperrexil txiki* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Astaperrexil txikia ("Aethusa cynapium") Apiaceae familiako landare belarkara da. Zurtoina hozkatua du, eta 10 cm eta 1 m bitarteko garaiera. ETC-entziklopedia

4 *astaperrexil zuri* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Igo, eta uhartearen beste muturrean aurkitzen zuten Allington zaharra, praka zuri olanazko batzuk jantzita, belar luzeen eta **astaperrexil zurien** artean hegaztiak edo untxiak gobernatzen. ETC-literatura, saiakera

Astaperrexil zuria ("Anthriscus sylvestris") Apiaceae familiako landare belarkara da, eskualde epeletan jatorria duena. 60x170 cm-ko altuera du. ETC-entziklopedia

5 *uretako astaperrexil* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Uretako astaperrexila ("Cicuta virosa") Apiaceae familiako landare belarkara da, iparraldeko Europa, Asia eta Amerikan jatorria duena. Oso pozoitsua da. ETC-entziklopedia

Artseniko zuria, **uretako astaperrexila**, lupu beltza edo antraxa, estriknina... ETC-prentsa

Uretako astaperrexila, Cicuta virosa, bere pozoiarekin arriskurik gabe, onik, uste osoko, errio bazterreko penditzean dotore makurtzen da ur gezetara eta gazietara. ETC-prentsa

---

astapiku *iz adkor* baboa, ergela.

"Abuztuaz geroztik, ni ez naiz ganoraz lehortu"), eta ederki damutuko dira Malfoy **astapiku** horri ekipoan postu bat erosten utzi zioten egunaz Iñaki Mendiguren

---

astapiper *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* *iz* lurralde epeletako belar landarea *(Polygonum persicaria)*.

Astapiperra ("Persicaria maculosa") poligonazeoen familiako landare belarkara da. Lantza itxurako hostoak eta zurtoin bikorduna ditu. Loreak txikiak dira, arrosa kolorekoak, eta gerbatan sortzen dira. Fruitu txikiak ditu. Munduko toki gehienetara hedatua dago eta leku hezeetan bizi da. ETC-entziklopedia

Hona Coleophora genero honetako tximeleten beldarrak aurkitzeko egokiera emango dizuten landare batzuk: asentsio-belarra, [...] ur-piperra, **astapiperra**, betibizi horia, isats arantzaduna, [...] itsabalkia eta abar luuuuuuuuuuuuze bat. ETC-prentsa

---

astapistola *iz* baboa, ergela.

Baina zer dela eta joan behar duzu berriro, **astapistola** horrek? Joseba Sarrionandia

Joselu **astapistola** galanta izan da beti. Alberto Barandiaren

Hasiera batean, egia esango dizuet, grazia egiten zigun Aloña eta bioi: "Hau da hau **astapistola**! Xabier Mendiguren Elizegi

astapito *izond/iz* baboa, ergela.

Harryk bere istorioaren gaineko berriketarekin jarraitzen zuen artean, gogoak alde egiten zidan Marinarengana eta haren senar **astapitoarengana**, eta AEPren fantasiazko bitxi madarikatu hura erostera eraman ninduten gertakizunen segidara. Oskar Arana

Gérard **astapitoa** den bezain izpiritu irekia du Txominek. Eneko Bidegain

Eta zerk pentsatuko du hark berataz, belarri barregarri, ile moztu gabe eta alkandora-lepo tximurtuarekiko **astapitoaz**? Oskar Arana

Metraileta **astapito** batekin zebilen. Eneko Bidegain

-Hara, ikusi al ditun hondakin organikozko bi **astapito** horiek? -galdetu zuen Nano Zuriak. Patxi Iturritegi

---

astapotro *izond/iz* baboa, ergela.

Mikel Strogoff marmarrean aita **astapotro** hura madarikatzen. Pello Lizarralde

Strogoff esne mamitan bizi zen bera bezalako lagun **astapotro** batzuekin, kalean barrena paseoan eta zigarroak erretzen. Pello Lizarralde

Imajinatu ezazu eszena:_ **astapotro** ero amorratu bat, burmuina kokainaz edo anfetaminaz gainezka. Karlos Zabala

Horrela bereizi ziren urak, hau da, Guilhâo anparorik gabe gelditu zen, baita bere fraideak ere hiru urrats zuhur jarri baitzituen elkarren artean, begiratzen zuelarik, mesfisdakor, ahuntzaren hankaren edo akerraren adarraren seinalerik ote zegoen **astapotro** ausarti eta, orain, garaitu harengan. Jon Alonso

-Utziko al diok behingoz **astapotro** baten modura jokatzeari? Koldo Biguri

Badakik nor izan den, Peppone, eta **astapotro** edo ergeletan azkena bihurtu ez bahaiz, badakik hire obligazioa dela horiek salatzea. Koldo Biguri

-Kontuz ibil hadi, **astapotro** halakoa! Joxemari Iturralde

Zakila esaten digu, pertsona zakila edo astazakila, **astapotroa**, astopitoa, kirtena, eta kirtenkeria, pitokeria eta abar. Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aita astapotro** (3); **astapotro hura** (3)

---

astaputz 1 *izond/iz* baboa, ergela.

Ia ez zion hitzik egin Herbologiako eskolan, nahiz eta Ron, Harry eta Hermione elkarrekin aritu ziren lanean **astaputz** berberarekin. Iñaki Mendiguren

"Astaputz galanta zen gixajoa, Jainkoak berekin izan dezala, baina bazuen alde onik ere". Patxi Iturritegi

Arnasa hartuz.../...ziran igon.../...bi **astaputz** .../...hots, bi gizon. Xabier Olarra

asta *iz* asto arra.

Bere ohaideez, **astar** eta zaldiak baino ere beroagoak ziren lizun haietaz, maitemindua zebilen. Elizen arteko biblia

Astar handi hau muxar txiki bat balitz, muturrarekin ukitu eta "hau trikua da", esango luke azeriak. Jokin Urain

Benaibordako **astar** urdin aztaloker hura, Petrineko mando gorri ostikolaria, Aldaiko mandoko uhela... Patziku Perurena

Tratamendu osoa egin zuenerako, **astar** bat edo elefante-kumea hankaz gora botatzeko pozoi kopuruak ardo basokada bezain erraz jasateko prestaturik zegoen Mitridates erregea. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

astatipula *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* tipularen antzeko belar landarea *(Urginea maritima).*

Aurrealdeko lorategiak, alboko soro krakatsuari halamoduz ebatsia irudi, azafrai hori batzuk eta **astatipula** zimel zenbait besterik ez zuen han-hemen. ETC-literatura, saiakera

Aipatzekoak dira, besteak beste, menda, anis-belarra, mihilua, errizino-olioa, **astatipula**, mitxoleta, erabelarra eta mandragora. ETC-literatura, saiakera

Zauria gaiztotu egin zitzaion, gezia **astatipula** izeneko landarearen zukuaz bustia baitzegoen. ETC-literatura, saiakera

---

astato *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi) iz* halogenoen saileko elementu kimiko artifizial eta erradioaktiboa *(At;* at. z. 85).

Astatoa elementu kimiko bat da, At ikurra eta 85 zenbaki atomikoa dituena. ETC-entziklopedia

Elementu guztien arteko elektronegatibotasunik baxuena dauka, Lurrean existitzen den bigarren elementurik arraroena da, **astatoaren** ondoren. ETC-entziklopedia

Kimikoki, iodoak halogenoen multzoko elementuen arteko erreaktibotasunik txikiena dauka, eta elektropositiboena da **astatoaten** ondoren. ETC-entziklopedia

Gainera, serieko elementu erradiaktibo bakarra, prometioa, ohikoagoa da naturako bi elementu arraroenak, frantzioa eta **astatoa**, konbinatuta baino. ETC-entziklopedia

Taula periodikoaren itxura estandarrean, metaloideak borotik **astatora** doan lerro diagonalean ageri dira. ETC-entziklopedia

Likido edo solido diren beste elementu batzuk solido molekular moduan lortzen dira: bromo, iodoa, **astatoa**, fosforo zuria (P4) eta sufrea (S8). ETC-entziklopedia

Astatoa, adibidez, ez da ia aztertu. ETC-literatura, saiakera

Gas nobleek eta taula periodikoan gas nobleon aurretik doazen elementuek -hidrogenoak eta halogenoek: fluorra, kloroa, bromoa, iodoa eta **astatoa**- guztiz propietate desberdinak dituzte. ETC-literatura, saiakera

Iodotik hegoaldera, berriz, **astatoa**; izena duen eskualdea izanagatik, gutxi dakigu hortik aurrera hari buruz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Taula periodikoko VIIb zutabeko elementuetako bakoitza: fluoro, kloro, bromo, iodo eta **astatoa**. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

astazain *iz* astoak zaintzen dituen pertsona.

Sei zortzi zatuka egitean, aitak lotu, astoa kargatu, sokak lizar karrote batekin ongi estutu, eta arre! ni **astazain**. Patziku Perurena

Don Martin ikaragarria zen; inori ez zion barkatzen; auzoko **astazain** bati, korritu batzuk ordaintzen ez zizkiolako, esnetarako astemeak bahitu zizkion, eta **astazainak** esanagatik astoak uzten ez baldin bazizkion zailagoa izango zela ordaintzea, don Martinek ez zuen onartu. Josu Zabaleta

---

astazakil *izond/iz adkor* baboa, ergela.

-Isil hadi, **astazakil** hori, mundu guztiak zekik-eta hemen hi haizela mozkorrik handienak harrapatzen dituena -defendatu zen Txantoi nagusia, burla eginez. Pedro Alberdi

-Ken ezak oraintxe bertan, mesedez, zigarro-mutur hori zulotik, **astazakil** horrek; ez duk ulertzen ala, gu bezain bizidunak direla izaki txiki horiek? Josetxo Azkona

Zertarako esan behar nien aurkezle zein ikusle **astazakil** haiei hiena hura ez zela hienaz mozorroturiko gizaseme bat, bene-benetako hiena bat baizik?Noskixeagoa ere, euskaldunak ez omen gaituk tripero **astazakil** batzuk besterik, eta gurekin ez dagoela kontatzerik, eta... zer gehiago ez zituen esan ordea, maketo ahozabal urde horrek!. Karlos Linazasoro

Astazakilen batek torturaturik, edo nazien kontzentrazio barrutien itxura duten hirietako txakurtegi horietan. Gotzon Garate

Ez baitu uste, ezta ere, **astazakilen** moduan egindako erasoak ezertarako balioko duenik. Jon Alonso

Astazakilen batek torturaturik, edo nazien kontzentrazio barrutien itxura duten hirietako txakurtegi horietan. Gotzon Garate

Nahiago **astazakil** likitsarengandik urrun, haren begiratu hutsak uzkurtzen baikintuen. Aingeru Epaltza

Lardats ere lardatsa izan beharra zegoen, edo **astazakil** burumotza, magnesitatik magnesio sulfatoa ateratzen ez asmatzeko, edo bromo potasiotik bromuroa. Juan Garzia

- **Astazakil** galanta haiz hi! -esan zion, aurpegira begiratuz. Koldo Biguri

Vierick, berriz, etsia da bera dela handiena, / **astazakiletan** bera baita **astazakilena** . Xabier Olarra

---

astazaldi *iz* habe nagusia.

Habeak, koloma, pilastra eta anten gainean jartzen dira; zoladuretan laxkak eta taulak jartzen dira; teilatuaren azpian, espazioa handia bada, tiranteak eta gapirioak; tamaina ertainekoa bada, gailurra jartzen da, eta teilatu-hegaleraino ateratzen diren **astazaldiak** ; **astazaldien** gainean, petralak; hauen gainean, eta teilen azpian, gapirioak, kanpora ateratzen direnak eta paretak estali eta babesten dituztenak. Santiago Iruretagoiena

Tinpanoaren gainean gailurra, **astazaldiak** eta petralak jarriko dira, kontuan hartuz isuriak teilatu osoaren heren batekoa beharko duela izan. Santiago Iruretagoiena

Ezinezkoa delako **astazaldiak** eta gapirioak frontoietan aurreko aldetik kanpora ateratzea, teilatuaren hegal aldera inklinatuta jartzen direlako beti. Santiago Iruretagoiena

---

aste 1 *iz* zazpi egun hurrenez hurrenekoren saila, igandetik larunbatera (ohiko erabileran astelehenetik igandera) doana.

Bizkitartean, Thomas kapitain gaixoak Hego Karolinarantz ihes egin zuen eta tristeki nabigatu oraindik **aste** batzuez. Juan Garzia

Autore batzuek, Munkek, adibidez, 'zazpi urterik behin' interpretatzen dute, baina beste batzuek, David Gonzalez Maesok, esaterako, 'zazpi egunik behin, **astean** behin' itzuli dute. Xabier Kintana

Bi **aste** joan ziren, eta arduradunak ez zuen gu beste talde batera pasatzeko konturik atera berriz. Juan Kruz Igerabide

Horrengatik **aste** bete aitzinetik abiatzen nauzu, bertako giroa dastatzerat, denbora eta garai hauetako ospakizunetatik urrun. Jose Angel Irigaray

Aste hartako hurrengo egunetan, hutsik egon zen hezlearen barraka. Koro Navarro

Horrekin guztiarekin, **aste** batzuk baizik ez ziren igaro eta txabola zaharra bizitoki atsegin eta segurua bihurtuta zeukan. Joanes Urkixo

Honetaraz gero -hala uste dut, eta oroitarazi egin didazu zure gutunean- bidaian nabilen hiru **aste** honetan, huts egin dut leihotikako paisaia igortzeko usaian. Koldo Izagirre

Haurrak bi **aste** egin zituen bataiatu gabe. Koldo Izagirre

Eta hemengo beilariek funtsean bide hori dute gehien bat egiten lauzpabost **astez** . Herria

Ezkondu baino bi **aste** lehenago egin zuten agur-bidaia batean izan zen, eta kamelia loreek sortutako lilurapena bereziki indartsua izan zen. Ibon Uribarri

-Oraingoz ez dagoela ba etxean -bentariak erantzun- bukatu egin dira; baina nahikoa izango da datorren **astean** . Patxi Ezkiaga

Hala egin zuen estreinako aldiaz pentsatu zuen, bi **aste** lehenago. Juan Garzia

Alabaina, sei **asteko** lanaren ondotik eta sultanaren harribitxi guztiak erabili arren, bitxigileek eta urreginek etsi egin behar izan zuten. Patxi Zubizarreta

Muga matxinatuena zela aurreko **asteaz** geroztik. Inazio Mujika Iraola

2 *iz* jaieguna ez dena, laneguna. ik **aste 11**.

Baina, egunero hartu behar ziren datuak, **aste** , jai, igande nahiz oporraldi... Pello Zabala

Zer dela-eta ontzigintzara behartua hainbeste jende, lan latz horretan jaia eta **astea** bereizi gabe? Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Stanleyk ez dit **aste** -saririk ematen; berak ordaintzen ditu fakturak, baina gaur goizean hamar dolar eman dizkit gauzak leuntzeko. Xabier Paya

Aste -amaieretako ohizko txikiteoan berriketan aritu naiz literatur kontuetan zaletua den adiskide batekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amai ezazu Learen eztei- **aste** hau eta, gero, Rakel ere emango dizut beste zazpi urteko lanaren truke. Jose Antonio Mujika

Hiria, ordea, alaitasunez borborka zegoen: inauteri- **astea** zen, eta kaleak zarataz eta jendez beterik zeuden. Jose Morales

Takimekanografoen ugazabak irrikan zeuden larunbat goizetan lanean jarduteko, lan- **astea** laburtzea onartzen baldin bazuten galduko zituzten mozkinei eusteko. Iñaki Mendiguren

eta, hori juduei atsegin zitzaiela ikusirik, Pedro ere preso hartu zuen. Pazko- **astea** zen. Elizen arteko biblia

Azterketa- **astea** hasi zen eta ezohiko isiltasuna iritsi zen gaztelura. Iñaki Mendiguren

5 ***aste barru*** *iz* asteko lanegunek osatzen duten denbora-bitartea. ik **astegun**.

Aste barruko basamortuan, osteguna luxe et volupté-zko oasia bihurtu zaio. Oskar Arana

Aste barruan Aimar Olaizolak bere sasoiaren inguruan zalantzak zituela onartu zuen. Berria - Kirola

Aste barruko egunen batean ere elkartzeko egokiera aipatu nion batean, argitasun handirik gabeko aitzakiatan galdu zitzaidan. Anjel Lertxundi

6 ***aste barruan***

Euskal Herrian, gero eta jende gehiago da, **aste barruan** herri-herrian bizi eta asteburuetan mendian edo itsas-. Gotzon Garate

Gero, **aste barruan** , ez neukan haxe neure kontura atara eta praktikatea besterik. Xabier Amuriza

Aste barruan frogak egiten ditugu, eta, beraz, hein batean espero nuen. Berria - Kirola

Urruti zegoen lantokia, eta bertara joan behar izan nuen bizitzera, **aste barruan** badarik ere, nire ezagunak eta etxekoak atzean utzita. Xabier Mendiguren Elizegi

Aste barruan gogor lan eginik, irabazten zuenak ematen zien etxean luxu handirik gabe baina kalean ongi bizi ahal izateko: neguan eski pistetan, uda partean modako hondartzetan eta asteburuetan han-hemenka olgetan ibiltzen ziren. Migel Angel Mintegi

Gainera, senideekin hilean behin dituen aurrez aurreko bisitak **aste barruan** egitera behartu dute. Berria - Euskal Herria

1990. urtetik aurrera heriotza kopuruak behera egin arren, asteburuetan **aste barruan** baino haur gehiago hiltzen dira. Berria - Gaiak

7 ***aste bukaera*** *iz* asteburua.

Aste bukaeran baizik ez diete jakinarazi ez zirela azalduko. Berria - Harian

Momentuz bataila zailenak **aste bukaeretan** biltzen ziren, Brezok behin eta berriz aspertzen ninduenean galdezka ea zer egin behar nuen larunbatean, ea zer egin behar nuen igandean, ea zer asmo berezi nuen hurrengo **aste bukaerarako** ... Joxemari Iturralde

Datorren **aste bukaeran** lehen kanporaketako azken saioa jokatuko da. Berria - Kirola

Itxurazko **aste bukaera** langile guztiek behar zuten zerbait zen, eta kapritxo hori bere buruari ezin emanik ez zeukan. Joxemari Urteaga

8 ***Aste Nagusi*** *iz* zenbait hiritako festa-astea.

Bilbon, **Aste Nagusia** bitartean, animalien aldeko elkarteek kanpaina egingo dute jai egitarautik zezenketak kentzeko. Berria - Euskal Herria

- **Aste Nagusian** Aneren lehengusu bat etorri zen lotara eta, oso oker ez banabil, berak eraman zuen. Unai Iturriaga

Baina, oker ez banago, abuztuan da Donostiako **Aste Nagusia** ... Joan Mari Irigoien

Aste Nagusian ere izango da antzerki eskaintzarik. Berria - Kultura

9 ***Aste Santu*** *(orobat* ***aste santu*** *eta* ***astesantu****) iz*

Izan ere, **Aste Santua** baliatuta, aiton-amonak Ekuadortik Iruñera etorri ziren lehengo astean. Berria - Euskal Herria

Denbora ere aurrera zihoan eta **Aste Santuko** oporren bezperan geunden. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez dakit ondo dagoen federik gabe **aste santua** opor hartzea. Joxerra Garzia

Martxoaren azken egunetan edo apirilaren lehenbizikoetan, hortxe-hortxe ibili ohi da zorioneko **Aste Santu** aspaldiko eta betikoa. Pello Zabala

Horregatik deituko zioten haizegorri hotz txorrotx horri, garizuma haizea eta **astesantu** haizea. Pello Zabala

10 ***Aste Zuri*** *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Aste Zuria da elurra nahikoa dagoenean; Aste Berdea da elurrik ez dagoenean, eta bietatik nahasketa bat da eguraldiak uzten duenean. ETC-prentsa

Ez da ahaztu behar **Aste Zuriarekin** 720.000 euro inguru lortzen dela. ETC-prentsa

Lehen hegoaldean Inauteri Astea zena, orain hegoaldean ere **Aste Zuria** da. ETC-prentsa

Baina " **Aste Zuria** " deitzen duten horretan, haurrak berdin-berdin eramaten dituzte Erronkarira, elurra egon edo ez. ETC-prentsa

Bihar Bartzelonara noa, **aste zuria** da han, eta alaba eraman behar dut Pirinioetara elurra ikustera. ETC-prentsa

Eskola egutegiaren araberakoa da jatetxearen egutegia ere, eta, ondorioz, datozen bi asteetan ezin izango da bertan bazkaldu, **aste zuria** ospatuko dutelako. ETC-prentsa

Aste Zuria izenarekin, Andaluzian, beste probintzia batzuetako jaiegunak konpentsatzeko ospatzen den eskolarik gabeko aste bat da, azoka feria astea abuztuan ospatzen baita, eskolarik gabeko hilabetea dena, Málaga Malaga eta Abuztuko Feriaren kasuan bezala. ETC-entziklopedia

11 ***astean-astean*** *adlag* aste guztietan. ik **astero 2**.

Astean-astean , hizkuntza batetik bestera azkar pasatzen diren esaerak, moduak, hitzak heltzen zaizkio "zaletuari". Iñigo Aranbarri

Modu txarrean bidali ninditean handik, baina handik bi egunera hantxe itzuli ninduan ni Higiene Bulegoko medikuarekin; tira, larru-zurratzeko tinarik handiena **astean-astean** husten zuten, astelehenetik asteartera bitarteko gauean! Juan Garzia

12 ***astean asteko*** *izlag* aste guztietako. ik **astero 3**.

Astean asteko hitzorduak emanen ditugu hemen. Herria

Egunerokoaz gain, **astean asteko** batez bestekoa ateratzen genuen, hilean hilekoa eta lauhilekoan lauhilekoa. Joxerra Garzia

13 ***jai eta aste*** *adlag* egun guztietan.

Amaitu berri nuenarekin aski nekaturik nengoen ordurako, eta berriro hasten zen niretzat udazkeneko aldapa pikoa, **jai eta aste** besteren liburuez arduraturik edukitzen nauena. Xabier Mendiguren Elizegi

Diruak lanak ematen ditu, bere mugitu- eta korritu-behar zoroak harrapatu zuenetik; dirua gobernatu egin behar da, ganadua bezalaxe: **jai eta aste** eman egin behar zaio biziko bada eta emango badu. Iñaki Segurola

Eta hau guztia, lehenago esan bezala, buru hutsez egiten nuen, eskua zeharo geldirik utzia, **jai eta aste** , burua zafratuz eta estutuz, harik eta, halabeharrez, edo, hobeki esanda, beharraren beharrez, pixkanaka-pixkanaka hazia isurtzea lortzen nuen arte. Josetxo Azkona

14 ***lan aste*** *(orobat **lanaste** g.er.)*

2001ean enpresarekin pixkanakako lanaldi murrizketa hitzartu zuten, 2006an 35 orduko **lan astera** iritsi arte. Berria - Ekonomia

Siemenseko presidenteak, bestalde, 40 orduko **lan astera** itzultzea proposatu zuen igaro astean. Berria - Ekonomia

35 orduko **lan astearen** alde, Catelsa greban. Berria - Ekonomia

Ikerketa baten arabera, ez da ona haurdunaldian 24 ordutik gorako **lan astea** izatea. Berria - Gaiak

Opelek ere **lan astea** luzatu nahi du soldatak bere hartan utzita. Urteko lan egutegia, astelehenetik ostiralera bitarteko **lan astea** eta erretenak eta eszedentziak arautzea nahi dute medikuek. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 25 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aste barru** (99); **aste bat** (186); **aste bateko** (28); **aste baten** (28); **aste batez** (67); **aste batzuetara** (39); **aste batzuk** (229); **aste batzuk lehenago** (34); **aste berean** (26); **aste bete** (47); **aste bi** (47); **aste bukaeran** (40); **aste buru** (64); **aste buru huntan** (28); **aste buruan** (38); **aste geroago** (27); **aste gutxi** (34); **aste guzian** (39); **aste guziz** (25); **aste guztian** (41); **aste hartan** (29); **aste hasieran** (37); **aste hauetan** (70); **aste honen** (26); **aste honetako** (92); **aste honetan** (1071); **aste honetan bertan** (121); **aste horietan** (49); **aste horretan** (27); **aste hortan** (93); **aste huntako** (46); **aste huntan** (367); **aste lehenago** (75); **aste nagusia** (39); **aste nagusian** (50); **aste ondar** (49); **aste ondar huntan** (26); **aste ondarrean** (49); **aste oso** (26); **aste osoa** (68); **aste osoan** (112); **aste pare** (91); **aste pare bat** (51); **aste santuan** (31); **aste santuko** (47); **azken aste** (126); **azken aste hauetan** (36); **bi aste barru** (67); **bi aste lehenago** (38); **bizpahiru aste** (34); **dela bi aste** (41); **duela aste batzuk** (62); **duela bi aste** (153); **duela hiru aste** (33); **duela zenbait aste** (29); **handik aste batzuetara** (30); **helduden aste** (39); **iragan aste** (45); **joan den aste** (69); **joanden aste** (54); **orain aste batzuk** (35); **orain bi aste** (55); **pare bat aste** (29); **zenbait aste** (72); **zonbait aste** (30)
>
> **aintzineko astean** (35);astean behin (177); **astean behin edo** (30); **astean bi** (84); **astean bitan** (41); **astean egin** (39); **astean hiru** (49); **astean zehar** (125); **astean zendu** (88); **astean zendu da** (52); **aurreko astean** (223); **azken astean** (79); **datorren astean** (487); **ganden astean** (89); **heldu den astean** (85); **helduden astean** (144); **heriotze ganden astean** (65); **heriotze joanden astean** (44); **hiltze iragan astean** (61); **hiru astean** (30); **hurrengo astean** (114); **iragan astean** (524); **iragan astean zendu** (50); **joan den astean** (756); **joan zen astean** (166); **joanden astean** (279); **lehen astean** (50); **lehengo astean** (127); **ondoko astean** (33); **pasa den astean** (37); **zen astean** (172)

---

asteart ik **asteart**e.

---

astearte *(orobat **asteart** g.er.)* **1** *iz* asteko bigarren eguna, astelehenaren eta asteazkenaren artekoa.

Asteartea , 1942ko abenduak 22. Josu Zabaleta

Asteartea , 1944ko ekainak 27. Josu Zabaleta

Asteartea , 1936ko irailaren 15a. Inazio Mujika Iraola

Asteartea , asteazkena eta osteguna pasa nituen han. Daniel Landart

Handik bi egunera, iraileko azkeneko **asteartea** zenez (Martitzen Munarrixe labartzarron artean) hileroko azoka tokatzen zen Labartzan. Txillardegi

Maiatzaren 24an, **asteartea** , zortzi eta erdiak aldera, etxera itzuli nintzen martimuiloan gau osoa lotan egin ondoren, eta igo nintzen apur bat gehiago lo egiteko. Lopez de Arana

1985eko uztailaren 7an, **asteartea** , arratsaldeko sei eta erdietan, Josu R -bere lan ordutegia bete bezain laster- kaleratu egin zen, artegaturik. Pedro Alberdi

Asteartea Gabon gaua zen, eta arratsaldean, maileguz hartutako koroa erdi batekin, Fish-Guarden atzeko tabernara joan nintzen. Koro Navarro

Udalekoak **asteartea** arte ez dute lanik egingo. Josu Zabaleta

Igandea, astelehena nahiz **asteartea** egokitzen bada, ez dago inolako dudarik, hurrengo asteazkenean bertan, izango da feria quarta temporum. Pello Zabala

Asteartez abiatu nintzen Donapaleura, ene behoka muturxuria azpian hartuta. Aingeru Epaltza

Alabaina, atzo, **asteartez** , beheko tabernatik igo, eta Joseba negarrez topatu genuen. Patxi Zubizarreta

Entrenatzaileak astelehen- **astearteetan** atsedena eman zigula aprobetxatuz, joan-etorri azkar bat egin nuen etxera. Joan Mari Irigoien

Bera ere biratu egin zen noski, eta "astelehenean edo **asteartean** deituko dizut" erantzun zidan, eta eskua altxatu zuen airean agur gisa. Ramon Saizarbitoria

Larunbatean, igandean, astelehenean eta **asteartean** hainbesteko beroa egiten zuen non ez bainintzen luma eskuan edukitzeko ere gauza, eta ezin izan nizun idatzi. Josu Zabaleta

Asteartean Karmengo Ama Birjinaren bezpera izanik, joan-etorri handia nabarmendu zen inguruetan. Txillardegi

Asteartean , albistearen jarraipenik ez paperezko edizioan. Iñigo Aranbarri

Astearteaz geroztik bila ibili naiz gazteluan, eta zorte handiz hauxe aurkitu dut Filch jaunaren agiritegian zelatan. Iñaki Mendiguren

Astearteak egun bereziak izan ohi dira Pariseko kartzeletan preso diren euskaldunentzat. Xabier Montoia

Eta **asteartetan** neskameek jai izaten zuten arratsaldetan. Arantxa Iturbe

Astearte euritsu batean egin zion Albak proposamena. Aritz Gorrotxategi

Hala, bada, pilula **astearte** batean hartzen hasi bazara, ondoren beti **astearte** batean hasi beharko duzu 21 pilulako xafla berria, kontuan hartu gabe noiz etortzen zaizun hilekoa. Luis Elberdin

Astearte horretan, ordea, ez zen saiora joan. Iban Zaldua

Astearte osoan ariko du euria, mendebal haizeak hiri gainera igorritako hodei lodietatik. Oskar Arana

Astearte gau bat, egun osoan aritu nintzen lanean Mazarino liburutegian. Monika Etxebarria

Hitz horiexek neramatzan gogoan trabesturik, abuztuko **astearte** goiz horretan. Aingeru Epaltza

-Eguraldi honek jarraitzen badu, agian **astearte** eguerdian. Iban Zaldua

Astearte arratsaldea eta ia asteazken osoa itxaropenez gainezka igaro nituen. Anjel Lertxundi

Astearte arratsalde hartan euria ari zuen, hain sarri non Woitech istant-istanteko galdu zen bistatik. Matías Mujika

Egoera lazgarri horretan, **astearte** gaua arte eduki izan balitz gorpua ibai ertzean, aurkituko zen hiltzaileen aztarrenen bat. Koro Navarro

Astearte gauean sartu nuen gutuna postontzian. Oskar Arana

Nik proposatu nion giltza berehala eramanen niola edo **astearte** iluntzean, ez nintzelakoz rugby entrenamendura joanen. Daniel Landart

Astearte iluntzean herriko etxean hartu gintuzten. Edorta Jimenez

Abuztuko **astearte** gau horretan ez zen gauzak samurrago ez joateko arrazoirik. Aingeru Epaltza

Gaur **astearte**-inautea da, baina Bouvillen horrek ezer gutxi esan nahi du; hiri osoan ehun bat pertsona eskas ibiliko dira mozorroturik. Monika Etxebarria

Sarekada bat izanen da, laster, **astearteko** argi zirrintan! Itxaro Borda

Esan zioten batzordearen hurrengo **astearteko** bileraren ondoren ordainduko zitzaizkiola beste lau gineak. Irene Aldasoro

Genomaren mapa osatu dutela-eta, honela zioen **astearteko** El Diario Vascok: "Genomaren mapak argi eta garbi frogatzen du arrazakeriak ez duela oinarri zientifikorik". Joxerra Garzia

2 *astearte buruzuri*

Astearte buruzuri ohi zenez, Antonio Musu-tristeri ez ezik, ostatuak dozena erdi bezerori ematen zion aterpe: berandu afaldu aitzineko azken errondan, batzuk; goizik afaldu ondoko lehen kopaxkan, bertzeak. Aingeru Epaltza

Asteart buruzuri bat baino ez duk. Unai Iturriaga

Astearte buruzuri batean ohi zenez, Antonio Musu-tristeri ez ezik, ostatuak dozena erdi bezerori ematen zion aterpe: berandu afaldu aitzineko azken errondan, batzuk; goizik afaldu ondoko lehen kopaxkan, bertzeak. Aingeru Epaltza

Lehen aldia izango da ba zuk **astearte buruzuri** batean parranda botatzen duzula! Unai Iturriaga

Olaizola II.ak ere eskatu zuen Unanueren kontrako partida atzeratzea, eta **astearte buruzurian** jokatu zen Iruñean. Berria - Kirola

3 *astearte-inaute*

Gaur **astearte-inautea** da, baina Bouvillen horrek ezer gutxi esan nahi du; hiri osoan ehun bat pertsona eskas ibiliko dira mozorroturik. Monika Etxebarria

Astearte-ihautean ez zaitez joan krepeak egingo ditugu-eta. Joseba Urteaga

4 *inauterietako astearte* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Italiako opera antzokietan urtean zehar lau denboraldi izaten ziren: lehena eta garrantzitsuena inauterietako denboraldia zen, abenduaren 26an hasi eta **inauterietako asteartean** bukatzen zena; gero, aste santuaren ondoren, udaberrikoa zetorren; hurrengoa udako denboraldia zen eta azkena udazkenekoa. ETC-literatura, saiakera

Eta Altsasuko momotxorroaren egunean, urte guztiko **inauterietako astearte** orotan, odolarena da bertako inauteria beste edonongo inauteritako asteartetik bereizten duena. ETC-prentsa

Inauterietako asteartean, Zanpantzarren auzia eta erretzea egingo dute, 18: 00etan, Hiribehereko plazan. ETC-prentsa

Inauterietako asteartea izango da egun nagusia, eta orduan epaitu eta erreko dute Zanpantzar; azken eguna ere hori izango da, baita Hartzaro festibalaren bukaera ere. ETC-prentsa

Inauterietako asteartean bukatuko dira, Leziagako sorgina erre ondoren. ETC-prentsa

Inauterietako asteartean zirtzilen dantzak ikusteko parada izaten dute Uztaritzen (Lapurdi). ETC-prentsa

Bestelako izen bereziak erabili izan dira, hala nola Lapurdin eta Nafarroan "zanpantzarrak" (jaietako pertsonaiari erreferentzia eginez) eta Gipuzkoan "asteartinak" (**inauterietako astearteari** erreferentzia eginez). ETC-entziklopedia

Inauterietako Astearte Handian mozorrozteko tradizioa zegoen. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **abuztuko astearte horretan** (5); **astearte arastiriko** (4); **astearte aratsalde huntan** (4); **astearte aratsaldean** (14); **astearte aratsaldeko** (5); **astearte aratsaldetan** (4); **astearte aratsean** (8); **astearte aratseko** (12); **astearte arratsaldean** (21); **astearte arte** (3); **astearte batean** (7); **astearte batez** (3); **astearte buruzuri** (3); **astearte eguerdian** (3); **astearte eta ostegunetan** (3); **astearte gau** (4); **astearte gaua** (4); **astearte gaueko** (5); **astearte gizen** (3); **astearte goiz** (4); **astearte goizaldean** (6); **astearte goizeko** (3); **astearte goizerako** (3); **astearte guziz** (4); **astearte handian** (5); **astearte honetan** (3); **astearte huntako** (3); **astearte huntan iragan** (3); **astearte iluntzean** (13); **astearte ta** (3); **asteko aroa astearte** (3); **baina astearte** (3); **baionan astearte** (4); **da astearte** (3); **datorren astearte** (4); **den astearte arratsean** (4); **den astearte goizean** (4); **dira astearte** (6); **heldu den astearte** (3); **heriotze astearte** (3); **iragan astearte** (7); **joan den astearte** (13); **lehen astearte** (3); **zen astearte gauean** (3); **zituzten astearte** (4); **zuen astearte** (7); **zuten astearte gauean** (3)
>
> **asteartea arte** (4); **asteartea bretainia** (4); **asteartea da** (3); **asteartea eskozia** (10); **asteartea flandes** (9); **asteartea gales** (4); **asteartea galizia** (7); **asteartea herrialde katalanak** (17); **asteartea korsika** (3); **asteartea zen** (4); **betiko anne asteartea** (10); **frank asteartea** (9)
>
> **asteartean abiatu** (5); **asteartean adierazi zuenez** (3); **asteartean amaitu** (4); **asteartean amaituko** (3); **asteartean argitaratu** (3); **asteartean atxilotu zuten** (4); **asteartean atxilotutako** (9); **asteartean aurkeztu** (3); **asteartean beharra** (3); **asteartean bere** (3); **asteartean berriz** (3); **asteartean bertan** (15); **asteartean beste** (5); **asteartean bete** (3); **asteartean bezala** (4); **asteartean bilboko** (3); **asteartean bilduko** (4); **asteartean egin zuen** (5); **asteartean egin zuten** (3); **asteartean egingo duten** (3); **asteartean eginiko** (4); **asteartean ehortzi** (3); **asteartean emandako** (3); **asteartean emango** (4); **asteartean epaituko** (3); **asteartean erabakiko du** (3); **asteartean ere** (6); **asteartean espainiako poliziak** (4); **asteartean eta asteazkenean** (13); **asteartean eta ostegunean** (3); **asteartean ez** (3); **asteartean gasteizko** (4); **asteartean gertatu zen** (4); **asteartean hasi zen** (5); **asteartean hasi ziren** (5); **asteartean hasiko da** (6); **asteartean hemendik** (3); **asteartean hil** (5); **asteartean iragan** (3); **asteartean iragarri** (3); **asteartean iruñean** (3); **asteartean izan zen** (4); **asteartean izango** (4); **asteartean jakinarazi** (3); **asteartean jokatu** (3); **asteartean jokatuko da** (3); **asteartean onartutako** (4); **asteartean oraino** (3); **asteartean pilota** (3); **asteartean txapeldunen ligako** (3)
>
> **astelehen eta asteartean** (7); **astelehenean eta asteartean** (13); **atxilotu zuen asteartean** (4); **atxilotu zuten asteartean** (5); **aurka asteartean** (4); **baina asteartean** (7); **bilduko da asteartean** (3); **da datorren asteartean** (4); **datorren asteartean egingo** (3); **den asteartean egin** (3); **den asteartean hasi** (4); **den asteartean izan** (3); **dira asteartean** (5); **dira joanden asteartean** (3); **dituzte asteartean** (4); **dolu joanden asteartean** (3); **du asteartean** (9); **du datorren asteartean** (4); **dute asteartean** (8); **dute datorren asteartean** (5); **esan zuen asteartean** (11); **heldu den asteartean** (25); **helduden asteartean** (26); **hona asteartean** (3); **hurrengo asteartean** (8); **iragan asteartean bahitu** (3); **iragan asteartean egin** (3); **iragan asteko asteartean** (3); **izan da asteartean** (5); **joan den asteartean** (90); **joan zen asteartean** (19); **lehengo asteartean** (4); **ondoko asteartean** (3); **partida asteartean jokatuko** (3); **pasa den asteartean** (3); **presidenteak asteartean** (3); **taldeak asteartean** (3); **ziren asteartean** (7); **zituen asteartean** (6)
>
> **astearteaz geroztik** (5)
>
> **astearteko bileran** (6); **astearteko gobernu** (4); **astearteko lan saioan** (3); **astearteko partida** (5); **hurrengo astearteko** (3); **joan den astearteko** (4); **zen astearteko** (4)
>
> **asteartera arte ez** (5); **asteartera bitartean** (3); **datorren asteartera arte** (4)
>
> **astelehenetik astearterako gauean** (4); **datorren astearterako** (7)
>
> **asteartetik asteazkenerako gauean** (3); **asteartetik hona** (3); **asteartetik larunbatera** (4); **asteartetik ostegunera** (3); **datorren asteartetik aurrera** (3); **joan den asteartetik** (3)

---

asteartero *adlag* astearte guztietan.

Munduko edozein tokitan egonik ere, **asteartero**, goizeko hamaiketan deitzen nion. Patxi Zubizarreta

Misteriotsua dela konkluditu genuen, zeren, **asteartero**, hamaika-hamaikatan, norbaiti deitzen baitzion telefonoz. Patxi Zubizarreta

---

astearteroko *(corpusean ez dago; ETCn **64** agerraldi)* *izlag* astearte guztietakoa.

Nola ez, jokoak iraun bitartean aukerarik prosaikoenak baztertu behar dira: zinemara doala, edo amarekin tortitak askaltzera kafetegi batera, edo kultur etxeko **astearteroko** hitzaldira. ETC-literatura, saiakera

Astearteroko trenean jendea isilik joaten baitzen, hiltzeko izuak eztarria lehortu eta aho-ezpainak zigilu batez itxi egiten baitzitu. ETC-literatura, saiakera

-Egia, Mallarméren **astearteroko** bilerak hemendik gertu izaten ziren, Rome kalean... ETC-literatura, saiakera

Horretan ari garela, **astearteroko** bilerak nahi baino gehiago luzatzen zaizkigu gehienetan, baina benetan emankorra eta gozagarria da taldean sortzea. ETC-literatura, saiakera

Hernaniko Galarreta frontoiak hartuko du gaur Euskalen lekukoa **astearteroko** jardunean. ETC-prentsa

Astearteroko gobernu bileraren osteko prentsaurrekoan Azkaratek Egunkaria-ren auziaren inguruko iritzia eskaini zuen, euskaraz eta gaztelaniaz irakurritako agiri baten bidez. ETC-prentsa

Amorrortuk **astearteroko** nire jarduna irakurtzen duela ere pentsatu nuen (barkatu harrokeria). ETC-prentsa

Astearteroko batzarra Oronotz-Mugairen egin zuten atzo Osasunako zuzendariek. ETC-prentsa

Gainera, **astearteroko** zuzendari bileraren ostean, zuzendariak (presidentea Donejakue bidea egiten ari da) Gancedorekin bilduko zirela iragarri zuen Bizkaik. ETC-prentsa

Gaur egun bake prozesua dagoen egoerari buruzko agiria irakurri zuen atzo Miren Azkarate Jaurlaritzako bozeramaileak, **astearteroko** gobernu bileraren osteko prentsaurrekoan. ETC-prentsa

EBZk dirutza sartu du banku arteko merkatuan berriro ere, ohiko **astearteroko** enkantean. ETC-prentsa

Bizkar gainetik zama astuna kendu izan balute bezala daude Lagun Aro Gipuzkoa Basketeko jokalariak **astearteroko** ate irekietako lan saioan. ETC-prentsa

Ondotxo zekien horrelako kopururik ez zuela **astearteroko** merkatuan aurkituko. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

asteasuar *izond/izlag/iz* Asteasukoa, Asteasuri dagokiona; Asteasuko biztanlea.

Pariskeria bat iruditu zitzaidan, eta azoka hartan ibili ziren nire arbaso **asteasuar** eta albizturtarrek kalte-ordaina merezi zutela pentsatu nuen. Bernardo Atxaga

Jakitun gara hitzen botere magikoaren jabe dugula **asteasuar** sarrailgina eta bere sorginkeriatik ez garela berehalaxe libratuko: eleberri honen irakurketa berriak proposatuko dituztelakoan eta egingo ditugulakoan gaude. Berria - Kultura

Asteasuarrak, buruz buruko txapelketa nagusian jokatzen zuen lehen partidan, ezin izan zion presioari eutsi, eta partidako une askotan aurkariak baino joko hobea erakutsi bazuen ere, ez zion errentarik atera bere nagusitasunari. Berria - Kirola

-Apaizekin hezi den batek ondo zakik zer nolako bukaera emango liokeen **Asteasuarrak**. Anjel Lertxundi

Ez bakarrik liburuan zehar idazleak erakusten duen hizkuntzaren maisutasun erabatekoagatik (zail da ulertzen nola kabitu daitekeen hainbeste dotorezia halako sinpletasunean), areago, hizkuntza, lexikoa, mintzamoldea munduan egoteko eta izateko modua dira **asteasuarraren** lanean. Berria - Kultura

---

asteazken *(orobat **astezken**, batez ere ipar)* *iz*

Abuztuko **asteazken** horretan, urrun zegoen nigandik azalpenak emateko gogoa. Aingeru Epaltza

Abuztuko **asteazken** goiz eguzkitsu horretan, ordea, ez zuen atertzeko trazarik, ez bederen berehalakoan. Aingeru Epaltza

Asteazken gauetan libre izaten dut beti; nire aiton-amonak uste dute zura grabatzen ikastera joaten naizela, baina alderdi sionistaren klub batera joaten naiz, joan, nahiz eta hara joateko eskubiderik ez izan, aiton-amonak sionismoaren oso kontrakoak baitira. Josu Zabaleta

Garizuma guzian, abendo guzian, **astezken** eta ortzirale guzietan, barur egiten zuen eta bere gorputza lizifrinatzen. Xipri Arbelbide

-Heriotza **asteazken** arratsaldean gertatu zen, hor nonbait. Aingeru Epaltza

Hiri honetan, **asteazken** triste batean, zer uste duk dagoela irekia goizaldeko bortzetan? Aingeru Epaltza

Asteazkena arte ez nuen astirik izan nire bizitzan gertatu berriak ziren aldaketa handietan pentsatzen hasteko ere. Josu Zabaleta

Iragan astean, hodeiak berriro ere torneoaren ikusle pribilejiatu bihurtu dira, eta bai **astezkenean**, bai ostegunean partida ugari eten behar izan dira. Berria - Kirola

Asteartean, **asteazkenean** eta ostegunean laurak eta erdietatik bostak eta laurdenak arte Peterrekin egon nintzen. Josu Zabaleta

Bestetik, ezkerreko hamar alderdik **astezkenean** iragarri dute gobernuaren eskuineko politiken aurka batzorde iraunkorra sortuko dutela. Berria - Ekonomia

Ez zuen ez, bestalde, penaz lehertzeko aitzakiarik: eiki, Andderen bi umeak ardura ekartzen zizkioten zaintzeko, halaber Maiteren mutikoa eta Gilenena, **astezkenetan**. Itxaro Borda

Asteazkeneko gertakarien ondotik, Ramirezekin edo bere gisako bertze jendilajearekin kausitzeko desiotan nengoela uste bide zuen Potzolok. Aingeru Epaltza

Astezkeneko pilota aukeraketan ez zeuden oso baikor Lekuineko aurrelaria eta Abartzuzako atzelaria, nahiz eta oraindik aukera baduten, eta bizirik di-ren artean hortzak gogor estutu eta aurre egingo diete kontrarioei. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abuztuko asteazken goiz (3); **abuztuko asteazken horretako** (3); **abuztuko asteazken horretan** (9); **asteazken arastiriko** (3); **asteazken arats** (3); **asteazken aratsalde apalean** (3); **asteazken aratsaldean** (4); **asteazken aratsaldeko** (8); **asteazken aratsaldetan** (4); **asteazken aratsean** (7); **asteazken aratseko** (12); **asteazken arratsaldean** (19); **asteazken arratsean** (10); **asteazken arratsez** (3); **asteazken eguerdian** (3); **asteazken eguerditan** (3); **asteazken eta larunbat** (4); **asteazken eta ostegunean** (5); **asteazken eta ostiraletan** (3)

asteazken gauean (45); **asteazken gaueko** (6); **asteazken gauez** (4); **asteazken goizaldean** (7); **asteazken goizean** (22); **asteazken goizetan** (3); **asteazken guziz** (8); **asteazken honetan** (7); **asteazken hontan** (3); **asteazken huntan** (15); **asteazken iluntzean** (11); **asteazken ostiral** (3); **asteko asteazken** (3); **dira asteazken** (4); **ehorzketak asteazken** (3); **iragan asteazken** (6); **izan da asteazken** (3); **joan den asteazken** (11); **joanden asteazken** (3); **zen asteazken** (6); **ziren asteazken** (3); **zituen asteazken** (3); **zuen asteazken** (7)

asteazkena arte (7); **asteazkena baino** (3); **asteazkena bitartean** (3); **asteazkena bretainia** (3); **asteazkena da** (5); **asteazkena eskozia** (6); **asteazkena flandes** (3); **asteazkena gales** (5); **asteazkena galizia** (10); **asteazkena herrialde katalanak** (12); **asteazkena korsika** (15); **asteazkena zen** (4); **betiko anne asteazkena** (12); **datorren asteazkena** (3); **frank asteazkena** (7)

joan den asteazkenaz (3)

agertu zen asteazkenean (4); **aintzineko asteazkenean** (3); **asteartean eta asteazkenean** (13)

asteazkenean atera (3); **asteazkenean atxilotu zuen** (4); **asteazkenean aurkeztuko** (3); **asteazkenean bahitu** (3); **asteazkenean bertan** (12); **asteazkenean beste** (4); **asteazkenean bilduko** (5); **asteazkenean da** (3); **asteazkenean egin zuen** (3); **asteazkenean egin zuten** (5); **asteazkenean egindako** (4); **asteazkenean egingo** (5); **asteazkenean ere** (7); **asteazkenean esan** (4); **asteazkenean espainiako poliziak** (3); **asteazkenean eta ostegunean** (11); **asteazkenean europako** (4); **asteazkenean ez** (5); **asteazkenean frantziako** (3); **asteazkenean frantzian** (3); **asteazkenean gertatu zen** (3); **asteazkenean hartu** (3); **asteazkenean hasi zen** (3); **asteazkenean hasiko da** (5); **asteazkenean hasiko dira** (3); **asteazkenean hasitako** (5); **asteazkenean hil zen** (4); **asteazkenean ingresatu** (3); **asteazkenean iritsi zen** (3); **asteazkenean iruñeko** (3); **asteazkenean izan zen** (3); **asteazkenean izandako** (3); **asteazkenean izango** (4); **asteazkenean jakinarazi** (3); **asteazkenean jakinaraziko** (3); **asteazkenean jean** (3); **asteazkenean jokatu** (8); **asteazkenean jokatuko** (5); **asteazkenean lehen** (3); **asteazkenean lortu** (3)

atxilotu zituen asteazkenean (3); **aurreko asteazkenean** (7); **baina asteazkenean** (6); **da asteazkenean** (9); **datorren asteko asteazkenean** (3); **den asteazkenean hasiko** (3); **den asteko asteazkenean** (3); **dira asteazkenean** (5); **dituzte asteazkenean** (3); **donostia asteazkenean** (4); **donostia datorren asteazkenean** (3); **du asteazkenean** (5); **du datorren asteazkenean** (9); **egin zuen asteazkenean** (3); **egunkariak asteazkenean** (3); **ehorzketak asteazkenean** (5); **erabaki zuen asteazkenean** (3); **ertzaintzak asteazkenean** (3); **esan zuen asteazkenean** (5); **heldu den asteazkenean** (20); **helduden asteazkenean** (16); **hurrengo asteazkenean** (5); **izan zen asteazkenean** (4); **joan den asteazkenean** (86); **joan zen asteazkenean** (25); **joanden asteazkenean** (7); **lehengo asteazkenean** (4); **pasa den asteazkenean** (10); **ziren asteazkenean** (4); **zituzten asteazkenean** (6); **zuen iragan asteazkenean** (5); **zuten asteazkenean** (16)

asteazkeneko bileran (4); **asteazkeneko entrenamendua** (3); **asteazkeneko lan saioan** (6); **asteazkeneko partida** (6); **asteazkeneko pilota** (3); **asteazkeneko saioan** (5); **datorren asteazkeneko** (3); **joan den asteazkeneko** (5); **zen asteazkeneko** (3); **zuen asteazkeneko entrenamenduan** (3)

asteazkenera arte (10); **asteazkenera bitartean** (6); **datorren astelehenetik asteazkenera** (3)

asteartetik asteazkenerako gauean (3); **dute asteazkenerako** (3)

asteazkenetik aurrera (8); **asteazkenetik igandera** (4); **asteazkenetik larunbatera** (3); **asteazkenetik ostegunerako gauean** (3); **datorren asteazkenetik** (4); **joan den asteazkenetik** (3)

asteazkenez salbu (5)

asteazkenero *adlag* asteazken guztietan.

Asteazkenero gauerdian zerua aztertu behar izaten zuten teleskopioen bidez eta izarren izenak eta planeten mugimenduak ikasi. Iñaki Mendiguren

Abadea **asteazkenero** etortzen zen. Edorta Jimenez

Asteazkenero Delors jaunaren etxean biltzeko ohitura omen dute, elkarrizketa kultural edo ez dakit zer demontre egiteko, Monsieurren hitzetan. Joxemari Urteaga

Asteazkenero joan izaten zen Andres Untzain hara. Edorta Jimenez

Asteazkenero entseatzen dute neguan eta udaberrian biran ateratzen dira EEBB guztian zehar. Harkaitz Cano

Asteazkenero ziurtatzen dute kartzelako buruzagiek Old Sparky ongi dabilen. Harkaitz Cano

Pasiera ematera zihoan Madame eta, **asteazkenero** bezala, seiak arte ez zuen Emileren beharrik izango. Joxemari Urteaga

ACB Ligako sailkapenean jaun eta jabe izan arren, Top 16an sartu ahal izateko partida erabakigarriak jokatu behar ditu **astezkenero**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
asteazkenero legez (3)

---

astebarruko *izlag* astegunetakoa.

Haien alboan jarrita, beraien arteko elkarrizketak entzun, eta betiko moduan segitzen zutela erabakiko genuen, hots, lagun taldetxoak osatu eta **astebarruko** pasadizoak elkarri kontatzen. Pedro Alberdi

Astebarruko goizetan egitarau zurrunaren martxa hain neurturik ez baitzuen saioak, eta gogoan dut zenbateko patxadan solastatzen eta mintzatzen ginen larunbat-igandetarako eguraldiaz eta, tarteka, ilargiaren jiraz eta eraginaz ere. Pello Zabala

---

astebete **1** *iz* aste osoa. ik **aste**.

Astebete koman pasa ondoren, bertan hil zen gajoa. Josetxo Azkona

Astebete iraun zuten liskarrek, eta auto erreketak eta kale kalapitak nonahi piztu ziren aldi horretan, nola Berlinen bertan, hala Hamburgen, Frankfurten edota Alemania guztiko hiri jendetsuenetan. Hasier Etxeberria

Astebetean mozkor-mozkor eginda etorri zaizkidan seme-alabak konpartsaren aitzakiarekin. Unai Iturriaga

Hala bada, ministroaren aldeko hiletak hilabete baten buruan amaitu zirelarik, bi anaiak ministerio lanak egiten hasi ziren, **astebetez** zaharrena eta beste **astebetez** gaztea. Patxi Zubizarreta

Kontua da idatzi eta **astebetera** edo, jarri nuela gutunontzian oharra. Ramon Saizarbitoria

Lauaxetaren bisitatik artean **astebeterik** ez zela, gutun harrigarria jaso nuen erredakzioan, guztiz ustekabekoa eta ia-ia Lauaxetaren bisita bezain ezinezkoa: nire lehenengo maitalearen gutuna. Juan Luis Zabala

Baina **astebete** iraganik, telefono-deirik ez. Fernando Rey

Andaluzian, **astebeteko** eurijasak nozitu zituzten, 9 hildako tartean. Pello Zabala

Orduan, ni saiatu ninduan poliziari esaten agureak hamar dolar zor zizkidala **astebeteko** lanagatik. Lopez de Arana

Astebeteren buruan, orain, marra kanoniko bat finkatua zuen Amyren laguntzarekin -bidexkatik etxera eta egongelan barrena sukalderaino iristen zen marra berezi bat-, eta beste marra batzuk, premien arabera, urrunago joateko, bainugelaraino eta logelaraino. Xabier Olarra

Astebetea emana zuen bere guruarekin, erlijio maisu-arekin. Gotzon Garate

Astebete behar izan zen, eta kanpo-kontu bat ireki behar izan nuen, bankuko inork jakin ez zezan zer nenbilen. Xabier Olarra

Astebete pasa zuan eta libratu ezinik zebilean. Xabier Etxabe

-Kanpora joango naiz **astebeterako** Yolanderekin. Eskarne Mujika

Azken **astebetean** bakarrik, muino ondoko mendilerro osoa zeharkatu du, gero eta harantzago. Alberto Barandiaren

Pentsatuko duzu, halaber, zer-nolako harriduraz eta bozkarioz hartu genuen zure anaia, handik ia **astebetera**, etxeko ataripean ate-joka agertu zitzaigunean. Mirentxu Larrañaga

-Nor haiz hi Jainko eta santuen izenak horren arin erabiltzeko? Doña Remediosek esan didanez, bestalde, barrez hasi haiz, eta barre egin diok haren aginduari, gelan desordena handia sortuz eta, beraz, ikastetxetik **astebeterako** egotziko haugu, falta larria egiteagatik... Joan Mari Irigoien

Bi egun, lau, **astebete**, hilabete... Sonia Gonzalez

Ez nien sekula akademia uzteko inprimakirik eraman, eta, handik **astebetera** edo, amak aitari egindako komentario batek errematatu zuen pasadizoa: Berriro gustua hartu diola ematen du. Anjel Lertxundi

"Badirudi patroiek azkenean ordaindutako oporren **astebetea** emango dutela. Pablo Sastre

Astebete baino lehen, etxean neukan epaia: Nire damuaren zintzotasuna eta lapurretaren arina kontuan hartuta, deuseztatuta uzten zuen epaileak nire kontrako auzia. Joxerra Garzia

1963ko urrian, Rouenen, hilekoa etorriko ote zitzaidan zain eman nuen **astebete** baino gehiago. Joseba Urteaga

Orain **astebete**, aitak aurreneko bihotzekoa izan zuenetik, Joxan konturatu da ez dela hain gogorra, hain sikua, eta bihotzak oraindik eskertzen dituela besarkadak eta laztanak. Paddy Rekalde

Lanik ezin bilatuz estualdi latzak iragan zituen: hemen hilabeteko lana, han **astebeteko** gosea, loa ahal zuen tokian... Iñaki Zabaleta

Berlingo lanean **astebetez** azaldu zen. Ramon Etxezarreta

Dena dela, akademia baten solfeoko irakasle gisa lortutako lanean **astebete** eskas aguantatu zuen. Jon Arretxe

A, eta **astebete** zaukaagu. Fernando Morillo

Apartamentuan bizitzen jarri eta handik **astebetera**, nire alaba Rachel (ezkonduta dago) etorri zitzaidan ikustaldia egitera, New Jersey-tik autoz. Oskar Arana

Astebete eman zuen Lower East Sideko Olivierren etxean, ohetik altxatu gabe. Harkaitz Cano

Beharbada bertan dagoelako barnetegi honetako hustubide nagusia, eta tentagarritik hurre nahi nautelako koilara zopatan harrapatu ahal izan nazaten, utzi nau **astebeteko** proban zuzendariak sukaldean. Koldo Izagirre

Astebete bazen sargori malapartatu hark beste nonbaiterako bidea hartu zuenetik. Joxemari Urteaga

Frantziako Poliziak Ipar Euskal Herrian 800 iheslari atxilotuko ditu 1940ko maiatzean **astebeteko** epe barruan. Jokin Urain

2 *astebete egin*

Astebete egin zian hemen, eta gero Frantziara pasa zuan mendiz. Bernardo Atxaga

Zikoinak putzu handi batetik hartu hinduen, amaren ohean utzi hinduen, eta amari mokokada bat eman eta hanka odoletan utzi zioan; **astebete egin** behar izan zian ohean horregatik. Josu Zabaleta

Astebete egin nian hanka bat armarioan nuela... Pablo Sastre

Dagoeneko **astebete egin** dute greba mugagabean fundizio lantegiko 52 langileek . Berria - Ekonomia

Ia **astebete egin** zuen horrela, gero eta urduriago, eta egoera hark gurasoak ere guztiz urduritzea ekarri zuen: laster hasi ziren elkarren arteko sesio txikiak eta ez hain txikiak, momentu batzuetan ematen zuen amona zela nire egoeraren erruduna. Anjel Lertxundi

Astebete egin genuen haiekin, helbururik gabe ibiliz, itxuraz. Juan Kruz Igerabide

Astebete egina zuen han, metrorako eserleku berriak saltzen. Hasier Etxeberria

Duela **astebete egin** ziguten bisita azkenekoz. Xabier Montoia

Astebete egin dugu horrela, gaur arte. Javi Cillero

Eta **astebete egin** ondoren, nora joango zara? Oskar Arana

Astebete egiten baldin badu etxera itzuli gabe... erotzeko zorian egoten naiz! Xabier Paya

3 *astebete geroago*

Eta une egokia **astebete geroago** heldu zen, sekula ahaztuko ez zuten ostiral hartan. Julen Gabiria

Astebete geroago bulegora joan nintzaion, hamaiketakoaren orduan, eta pintxo batzuk jan genituen abokatuez eta banku-langileez beterik zegoen taberna batean. Iban Zaldua

Astebete geroago Kennedy hil zuten Dallasen. Joseba Urteaga

Hiruhilekoa hasi eta **astebete geroago** jokatu zuen Ravenclawek Slytherinen kontra. Iñaki Mendiguren

Ez **astebete geroago**-edo mekanoa ekarri zion egunean ere. Jokin Muñoz

Astebete geroago, goizalde batean azaldu nintzen zorioneko karrikara. Aingeru Epaltza

Portland eta Arrate, berriz, **astebete geroago** hasiko dira lanean, urtarrilaren 10ean. Berria - Kirola

Epaimahaiak **astebete geroago** emango ditu irabazleen izenak. Berria - Harian

Astebete geroago, goiz batean, Orin Marshall, Danny Owens eta hirurak Dummyren etxe aldera abiatu ginen, bizikletaz. Koro Navarro

Astebete geroago poliziak Bartzelonarako gau-espresoan atzeman gintuen, eta kartzelara joan ginen. Bernardo Atxaga

4 *astebete lehenago*

Performance-a egin baino **astebete lehenago** esango dute non eta noiz egingo duen iparramerikarrak bere saioa. Berria - Kultura

Astebete lehenago, Eltzegor eta Txanbela izan ziren kartzela barruan. Berria - Harian

Hauteskundeak baino **astebete lehenago**, Aurora agertu zen azkenean, baina hogeita hamar minuturen buruan berriro desagertzeko bakarrik. Oskar Arana

Einsteinek azken eskutitza hil baino **astebete lehenago** idatzi zuen. Fernando Morillo

Amets hori egin ondoren berriturik esnatu zen, **astebete lehenago**, Mirarien denbora pasa baino lehen, zegoen bezala, ametsa ere benetako miraritzat hartu balu bezala. Matías Mujika

Astebete lehenago, hala ere, beste liskar bat izan zuen amarekin. Joan Mari Irigoien

Zergatik itzuli ziren ia **astebete lehenago**, taxisez gainera? Karlos Linazasoro

Gerra **astebete lehenago** igaroa zen eskualde hartatik, baina hark utzitako kiratsak indargea zirudien udaberriak susperturiko mendi haietan. Alberto Ladron Arana

Ontziratzeko deia zekarkidan mutila nire bila etorri baino **astebete lehenago**, hain zuzen ere, emakume flandestarrak ikusi eta egun batzuetara. Edorta Jimenez

Astebete lehenago, klasean beste aurpegi eder bat besterik ez zen neska hura. Oskar Arana

Toyota bat zen, greba baino **astebete lehenago** ordaintzen finitu berria eta bere egonaldi amerikar luzetik gelditzen zitzaion gauza bakarra. Xabier Montoia

Gomutan daukat **astebete lehenago** gangsterren etikaz jarduna zitzaidala. Koldo Izagirre

5 *duela astebete*

Nagusia **duela astebete** etorri zen, eta kontatu zigun Frazier ekialdera bidali dutela eta edozein unetan, nik nahi badut, libre dudala bidea itzultzeko eta berehala lortuko didala lanpostu bat. Xabier Olarra

Oraingoan O. irakaslea hil da, **duela astebete** eskas Zürichen berarekin aurrez aurre hizketan aritu nintzena. Joxe Austin Arrieta

Nafarroako suhiltzaileek **duela astebete** utzitako greba berriz hasi zuten atzo goizean. Berria - Ekonomia

Duela astebete jarri zuen AVTk kereila, talde gasteiztarrak terrorismoa goratzen duela esanez, baina ez da hori Garzonek aztertzekoa duen salaketa bakarra. Berria - Kultura

Batzuk **duela astebete** hasiak dira mendian goiti. Xabier Montoia

Duela astebete nire etxeko atean jo zuten kax-kax, eta irekitzean argazkiko emakumearen begiradarekin topo egin nuen aurrez aurre. Iban Zaldua

Juan José Saer idazle argentinarrari irakurri nion **duela astebete**, idazlearen zeregin nagusia idaztea dela. Hasier Etxeberria

Duela astebete gelara sartu eta negarrez topatu nuen. Joseba Sarrionandia

Orain **duela astebete**, eta joandako astearen hein batean ere, ahalegin guztiak eta bi egin behar izaten zituen kontu hura burutik kentzen saiatzeko gogora zetorkion aldiro. Mirentxu Larrañaga

76635-Q poliziari mutil-lagunak utzi dio nobela, **duela astebete**. Iban Zaldua

-Ez zagok gasik **duela astebete**. Eskarne Mujika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

astebete baino (31); **astebete baino gehiago** (9); **astebete barru** (32); **astebete beranduago** (9); **astebete daramate** (10); **astebete edo bi** (8); **astebete egin** (17); **astebete eman** (9); **astebete eskas** (10); **astebete falta** (8); **astebete geroago** (56); **astebete inguru** (9); **astebete iraun** (7); **astebete lehenago** (60); **astebete pasa** (7); **astebete pasatu** (7); **baino astebete lehenago** (16); **beste astebete** (10); **duela astebete** (77); **ia astebete** (11); **orain astebete** (21); **orain dela astebete** (17)

astebeteko epea (13); **astebeteko epean** (10)

handik astebetera (37)

beste astebetez (8)

---

astebukaera *iz* astearen bukaera.

Arraunlari eta patroien ahaleginari ez dago meriturik kentzerik, baina **astebukaera** honetan jokatutako bi banderetan Eolok zer esan handiagoa eman du. Berria - Kirola

Astebukaera bukatzerako Urdaibai berriro lidergoan, eta oraingo honetan berdinketarik gabe, puntu bakarreko diferentziaz. Berria - Kirola

Gero, barrukoen protestari esker, lortu zuten bisitak denek batera eta **astebukaeran** izatea. Jokin Urain

Asteguna zein **astebukaera** izan. Fernando Morillo

Opor antzeko bat hartuko nuela, **astebukaerarako**. Xabier Mendiguren Elizegi

Orotara, **astebukaera** osoan 2.000 mahai jarriko ditu ezker abertzaleak Euskal Herri osoan salaketak jasotzeko. Berria - Euskal Herria

Federazio Ligari dagokionez, **astebukaera** emankorra izan da, A mailako bi estropada eta B mailako beste bat jokatu baitira. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

astebukaera honetan (11)

datorren astebukaeran (7)

---

asteburu 1 *iz* asteko azken egunak. ik **aste bukaera**.

Asteburuetan memelo mozkorti horiek nahi dutena jarri beharko diat - baita Los Planetas baino gauza okerragoak ere, ziur egon hadi -: ondo zegok. Iban Zaldua

Argazkiaren aitzakia, **asteburuan** oso ona eta arrazoizkoa iruditu zitzaidana, aski ahul eta sinesgaitza begitantzen zitzaidan orain, Oñatira bidean autoan sartuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Lan kontuak zirela eta, esan zidan, senarra Madrilera joana zen **asteburu** hartan, atzerritar batzuekin elkarrizketatzera. Migel Angel Mintegi

Beraz, bata zela eta bestea zela, Harry oso pozik zegoen **asteburua** iritsi zelako. Iñaki Mendiguren

Asteburuan ostatuetako neskekin sosak xahutzen, eta astean patatak eta ogi gogorra ebasten zituen, ilobak errukituta ogi xerrak gurinarekin igurtzita uzten zizkion eskueran... Pablo Sastre

Kasik beti **asteburuko** kirol emaitzetan mugatzen ziren aita eta semearen arteko elkarrizketak. Ramuntxo Etxeberri

" **Asteburu** bakoitzean eta kartzela bakoitzean justifikaziorik gabeko agintekeriarekin topo egiten dugu" dio Carmenek. Jokin Urain

Hortaz, eskolak hartzen zuen gure bizitzako leku zentrala, maila guztietan: ikastea bihurtu zen zeregin nagusia, eta eskolakideena gure harreman ohizkoena, koadrila **astebururako** utzita. Xabier Mendiguren Elizegi

Zinemara joaten gara batzuetan, baina **asteburuetan** elkartzeko proposatzen diodanean, beti dauka planen bat. Alberto Barandiaren

Berdin die fisika nuklearraz edo **asteburuko** mendiko ibilaldiez jardun; beti erabiltzen dute euskara jaso bera. Koldo Zuazo

Bai, adiskide, bai, nekatuta zeunden, Oportotik etorri berria, eta **asteburu** osoan idorreriak eragindako nahi eta ezina kanporatu nahi zenuen. Javi Cillero

Asteburuan izango dut parrandarako aukera, badakizu... Paddy Rekalde

Lehen, berriz, sano zegoenean, ez zion uzten afaldu ondotik jostailuekin aritzen, **asteburuan** ez bazen. Jokin Muñoz

Fermin Muguruzak kontzertua eman zuen Artozkin zutik iraun zuen azken **asteburuan**. Edurne Elizondo

->03UrrU01¬40<-Bere agindura gauzkan nagusia ere oso zuzena da gurekin: langile arruntei bezala, soldata ordaintzen digu **asteburua** heltzean. Markos Zapiain

Asteburuko kalapita batean harakin aizto bat tripa erdian sartuta amaitzeko baino arrazoi gutxiago, akaso. Javi Cillero

-Ttipitan **asteburu** guziz joaiten nintzen haren baserrira. Eneko Bidegain

Banketxeetako gerenteek dirua eraman egiten zuten, **asteburuan** apustuak egin, han-hemenka kolokatu, epe laburreko salerosketak egin, eta astelehenean itzultzeko, irabaziak beraientzat gordeta. Pako Aristi

Asteburuan sufritzen dut bakarrik, ez baitugu lanik egiten. Eskarne Mujika

Geroztik egunero egiten geninan etxerakoa elkarrekin, eta **asteburua** etorri zenean ea harekin aterako nintzen galdetu zidanan. Xabier Mendiguren Elizegi

Erratza bertan utzirik, egiaz garbiketa ez zitzaidan batere laket, **astebururako** ahalezko ideia horren partekatzeko, Mairos alegerari telefonatu nion lanera. Itxaro Borda

Asteburu batean, alabaina, aiton-amonenera abiatu ziren auzotarrak, eta interferentziak ez ziren haiekin joan. Iban Zaldua

Horiek paseoak eta **asteburuak** baino gehiago balio dute! Harkaitz Cano

Uniformerik ez, gaztearen gisako arropa baizik soinean: **asteburuko** mendizalearen anoraka, halabereko botak eta panazko galtza lodiak. Aingeru Epaltza

Zigor arina ezarri zioten, bi hilabete estatuko kartzela batean eta komunitate-lanak hamaika **asteburutan**, eta eskandalua ez zen oso ozena suertatu; aipatu zen egunkarietan gertakizuna, baina gure inizialekin soilik. Iban Zaldua

Ez nituen izango nire bizitzan, **asteburu** hura baino erreparatuagoak, ea betetzen ote zen bezperan esana... Pello Zabala

2 (izenondoekin)

Ostiral hartan, oinak arrastaka heldu nintzen etxera, bi aldiz lurjota, etxeko bakardadeagatik eta **asteburu** luzeagatik. Juan Martin Elexpuru

Zenbateko onura ekarri ohi duen **asteburu** on batek! Ez dago, noski, inor konbentzitu beharrik. Pello Zabala

Asteburu libre baten bezpera, zortziak eta laurden jo gabe eta dagoeneko etxeko atariaren parean. Aingeru Epaltza

" **Asteburu** beltza errepidean" irakur zenezake noiznahi egunkarietan, eta argazkian, zoru-gaineko odolaren gorri biziak salatzen du asteburuaren beltza. Iñaki Segurola

Asteburu luze hartan ezagutu ziren liskar eta gehiegikeriek, goragale eta gomitolarri itzela eragin dute Bidasoaz honanzko lurretan. Hasier Etxeberria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

asteburu bat (24); **asteburu batean** (9); **asteburu guzian** (180); **asteburu hartan** (11); **asteburu honetako** (13); **asteburu honetan** (200); **asteburu honetarako** (14); **asteburu horretan** (9); **asteburu hortan** (88); **asteburu huntan** (99); **asteburu luze** (9); **asteburu osoa** (7); **asteburu osoan** (11); **asteburu pasa** (7); **bestak asteburu huntan** (8); **bi asteburu** (13); **helduden asteburu hortan** (10); **hitzorduak asteburu guzian** (11); **iragan asteburu** (56); **iragan asteburu hortan** (53); **joanden asteburu hortan** (22)

aitzineko asteburuan (7); **asteburuan amaituko da** (9); **asteburuan egindako** (14); **asteburuan hasi** (12); **asteburuan hasiko** (23); **asteburuan izandako** (15); **asteburuan jokatu** (21); **asteburuan jokatuko** (23); **aurreko asteburuan** (38); **azken asteburuan** (9); **bigarren asteburuan** (8); **datorren asteburuan** (48); **heldu den asteburuan** (47); **helduden asteburuan** (9); **hurrengo asteburuan** (23); **iragan asteburuan** (88); **joan den asteburuan** (128); **joan zen asteburuan** (42); **joanden asteburuan** (25); **jokatu zen asteburuan** (7); **jokatuko da asteburuan** (14); **jokatuko dira asteburuan** (8); **lehen asteburuan** (19); **ondoko asteburuan** (9); **pasa den asteburuan** (19)

bi asteburuetan (10)

asteburuko hitzorduak (186); **iragan asteburuko** (11); **joan den asteburuko** (7)

bi asteburuotan (7)

asteburura arte (7)

---

asteburuero *(ETCn **211** agerraldi; orobat **astebururoi** ETCn **857** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **asteburueroi** agertzen da)* **1** *adlag* asteburu guztietan.

Zer esanik ez, ezinezkoa egin zitzaidan **asteburuero** manifestazio bat aurkitzea, eta halakorik suertatzen ez zitzaidanean, bingora jotzen nuen. Iban Zaldua

Urtearen lehenengo bi hilabeteetan 400 pertsona hil dituzte, bataz beste berrogei bat edo **asteburuero**. Pako Aristi

Aurrerantzean, **astebururo**, itsasertzeko kale nagusiko 4 km bidegorri bihurtuko dira ordu batzuetan. Berria - Kirola

1989ko udazkenean, Stephenentzat marrazki-enkarguak lortzen hasi zen Margaret, eta **asteburuero** ateratzen zuen marraztera. Xabier Olarra

Gainera, hasiera batean **asteburuero** itzultzen nintzen herrira, etxekoengana eta koadrilakoengana, baina gero Sandra azaldu zen, eta zeharo aldatu ziren gauzak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ordea, ile-apaindegira joaten zen **astebururo** tindua ematera. Jon Maia

Bizpahiru urte zeramatzan gurasoen tabernan ia **asteburuero** laguntzen. Fernando Morillo

2 ***asteburueroko*** *(corpusean **astebururoko** soilik)*

Eta orain, jolasgurak eta galderak **astebururoko** bidaia amaiezinetako neke eta istripuetan galdu zaizkienean, euren neska edo mutil-lagunekin etortzen dira kabina berberetara edo bisean bisetara. Jokin Urain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kasik asteburuero (3)

---

astebururo ik **asteburuero**.

---

astegun **1** *iz* jaieguna ez dena, laneguna.

Osasuntsu eta sendo garenotatik inork ez du garizumakoak beste janaririk jan behar **astegun** edo jaietan, egunero barau eginez, Felixiana, **astegun** buruzurian, eskaileretan behera atzez jaisten zela belaunak ondo ez zituelako; igandeetan, ordea, beti frentez. Askoren artean

Asteguna zein astebukaera izan. Fernando Morillo

Bazen gehiagorendako lekua, baina, **astegunetan**, ez omen zuten afari gehiagorik zerbitzatzen gaueko hamaiketatik goiti. Aingeru Epaltza

Bazen gehiagorendako lekua, baina, **astegunetan**, ez omen zuten afari gehiagorik zerbitzatzen gaueko hamaiketatik goiti. Aingeru Epaltza

Aitatxik igandeetan erraten zizkidanak **astegunetan** ez berritzera ikasi nuen bederen. Aingeru Epaltza

"Taldea" astero biltzen zen, **astegunez** beti, arrats aldera, kideen etxeak txandakatuz. Aingeru Epaltza

Edozein **astegunetako** bederatzietan -igandean izan ezik-, hiriko kaleak, egia da, jendez gainezka egoten dira. Koro Navarro

Hemen aurkituko nauzu **astegunetan**, ordu honetan. Migel Angel Mintegi

Eta horrela, **astegunetarako** sandaliak eta igandeetarako tenisak erosi zituen. Bego Montorio

Astegun zuria izanagatik, ostatua aski beterik zegoen. Xabier Montoia

Astegun goizero joan beharra zuen erradioterapia saioetara. Elizaren egutegian, **astegunak**, igandea ez gainerakoak, denak feria ziren, festabako, **astegun** gorri edo **astegun** buruzuri. Imanol Zurutuza

2 *astegun buruzuri*

Izateko eran serioa da **astegun buruzurian**, baina zirikatzaile petoa asteburuetan. Xabier Etxabe

-Astegun buruzurian zinera? Pedro Alberdi

Horren beltza izan ez balitz aurpegira barre egingo genion, ziurrenik: diskoteka bat, arratsaldeko bost eta erdietan, **astegun buruzuri** batean. Iban Zaldua

Harritu egin da, gutxitan joaten bainaiz etxera, are gutxiago **astegun buruzuri** batean, baina ez dit zergatia galdetu, eta eskertzen diot, neronek ere ez bainuke jakingo. Xabier Mendiguren Elizegi

Elizaren egutegian, astegunak, igandea ez gainerakoak, denak feria ziren, festabako, astegun gorri edo **astegun buruzuri**. Pello Zabala

Urtarrileko eta otsaileko bi **astegun buruzuritan** jokatu ziren aipatutako partidak. Berria - Kirola

Zineman nuen ikusia antzeko zerbait, Werner Herzogen film batzuetan, baina ez nuen uste inoiz horrelakorik benetan begien aurrean ikusiko nuenik, are gutxiago **astegun buruzuri** batez Orexako plazan eta Lauaxetaren aldamenean. Juan Luis Zabala

3 *astegun gorri*

-Ez nuen uste **astegun gorrian** Bilborako hainbesteko mugimendua zegoenik. Ramon Saizarbitoria

Elizaren egutegian, astegunak, igandea ez gainerakoak, denak feria ziren, festabako, **astegun gorri** edo astegun buruzuri. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **astegun buruzuri batean** (3); **astegun buruzurian** (4); **astegun zuria** (3)
> **astegunetan ez** (4)

---

astegunero *adlag* astegun guztietan.

Asteguna zein astebukaera izan. Fernando Morillo

Adin guzietako saioa **astegunero** eskainiko da 10'30 etatik 12'30ak arte. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 1 aldiz agertzen direnak)**
> **astegunero eskainiko da** (1); **guzietako saioa astegunero** (1); **joan etorri astegunero** (1); **saioa astegunero** (1); **saioa astegunero eskainiko** (1)

---

astekari *iz* astero argitaratzen den aldizkaria.

---

astelegun *iz* asteguna.

Eta zergatik gordetzen da egunez, **astelegunez**? Patziku Perurena

Igandeetan herrian luzitzea gustatzen zitzaion; ez zitzaion, ordea, gutxiago gustatzen **astelegunetan** gidariaren eserlekuan zigorrari eraginez joatea, bideko bentetan sartzea, istorioak kontatzea eta entzutea eta mandatuak eramatea. Koro Navarro

Hori zuen erraiten, eta **astelegun** gorrian oraino, egun hauetako auto uhaldeari so zagoen batek: beti heldu eta sekulako bazela iduri. Herria

---

astelehen *(orobat **astelen** g.er.)* **1** *iz* asteko lehen eguna, igandearen eta asteartearen artekoa.

-Hiru aleak izenpeturik ekarri otoi, datorren **astelehenek** berantenez, behar diren dokumentuez horniturik. Itxaro Borda

Astelehen batean ikasle berri bat agertu zen gure gelara. Xabier Montoia

Astelehena edo asteartea izango zen, asteazkena beharbada. Joxan Elosegi

Astelehen hartako isiltasuna Euzkadiko Jaurlaritzako funtzionario batek apurtu zuen. Lutxo Egia

Bihar hau eraman eta **astelehenean** eskatuko dizkiot 500 dolarrak Catherineri. Iñaki Zabaleta

Astelehena da eta badaki goiz horretan partituko dela ontzia. Harkaitz Cano

Iluntzen ari zuen; amaitzear zegoen **astelehena**. Jon Muñoz

Kanpoan dago, ez da **astelehen** arte itzuliko. Harkaitz Cano

Usaina **astelehenean** hasi zen. Joseba Urteaga

Hasierako Erregelaren arabera, anaiek asteazken eta ostiraletan egiten zuten barau; **astelehen** eta larunbatetan barau egiteko Frantziskoren baimena behar zuten; gainerako egunetan, berriz, haragia jaten zuten. Askoren artean

Astelehen, asteazken eta ortziraletan izaten nuen hitzordua Etxeberrirekin. Aingeru Epaltza

Astelehen batean, Nawperdan-eko zelata-lekua ipinia zegoen zubi txikian, tiroak entzun nituen, eta gizon bat erortzen ikusi nuen, balek jota. Juan Kruz Igerabide

Joan den **astelehenean** "egun batzutarako" aldegitekoa zela esan zidan, bai?, eta oraindik ez da itzuli. Txillardegi

Hartara, abuztuko **astelehen** horretan ere, nola edo hala atseden hartua nuelako ustearen jabe ireki nizkion begiak munduari. Aingeru Epaltza

-Astelehena da -esan zion amari-. Iñaki Mendiguren

-Bai, **astelehenekoa**! -erantzun dio Manuk-. Jokin Muñoz

Astelehenean deitu diote berriz ospitaletik. Harkaitz Cano

Astelehenean jakin zen neska ez zela Rue des Drômesera joan; eta eguna neskaren arrastorik aurkitu gabe joan zenean, beranduko bilaketa bat egin zen hiriko zenbait tokitan eta hiri inguruan. Koro Navarro

Hau igandearen izenean, eta hau **astelehenaren** izenean! Amaitu dut! Anton Garikano

Hurrengo **astelehenek** El País-en ematen zuten detektibearen heriotzaren berri, zutabe labur batean. Iban Zaldua

Donazaharren egiten zen merkatua **astelehen** guziz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Arrebak Bilboko denda batean egiten zuen lan, **astelehenetik** larunbatera, eta bertan bizi zen gurasoen etxean. Joxemari Iturralde

Ostiral batean izan zen hori; **astelehenean** hastekotan geratu nintzen, eta asteburu hura muguruzatarrei buruzko informazioa biltzen eman nuen, ezagunaren ezaguna eta eskura nituen beste iturri batzuk erabiliz. Xabier Mendiguren Elizegi

Astelehenetan aldiz, zainketa ez zen hain zorrotza. Elena Touyarou

- lehen, haste, hasiera zentzuan: asaba (hasaba, lehen aita < primogenio) aste (urte, elurte, edo lehorte bezala, ilargiak lurrari emandako hats aldia alegia, horregatik, gero **astelehen**, astearte, asteazken, ilargi aldi osoa osatzeko. Patziku Perurena

Nabarrengoxe hirira joana nintzen Uztaritzeko Seminario Txikian ezagutua nuen garaztar adiskide baten gana, **astelehenez** . Piarres Aintziart

-Nitaz galdetzen badu, martxa egin dudala eta **astelehena** arte ez nauela ikusiko -irribarrea moldatu nuen, bekatu-lagun eske. Aingeru Epaltza

Ondoko **astelehenean** "Gudari Eguna" herrietan ospatuko zela banekien. Txillardegi

Astelehenean zure zain egon nintzen; eta, ez zentozela ikusita, zure koadroa jaso nuen azkenerako; iltze batetik zintzilik ipini nuen, nire logelan. Karlos Zabala

Igandeetan, berriz, urdaia banatzen ziguten, eta arroza, neurrian, gero **astelehenetan** eta asteazkenetan hiruna ontza hezur ematen zizkiguten, baba nahiz garbantzuekin batera, lapikokoa egin genezan, eta gainerako egunetan, hots, asteazkenetan, ostiraletan eta larunbatetan, arraina, hegaluzea zein bakailaoa. Edorta Jimenez

Astelehenekoa arestian aipatu dudan Jorge de Brito arkitektoaren eskutik egin bagenuen, atseginez egin ere, asteartekoan beste gizon dotore-atsegin bat agertu zitzaigun gidari: Vitorio de Almeida. Edorta Jimenez

Oñatiko Mikeli deitzea neukan pentsatuta; **astelehenean** bertan gainera, bestela, gauzak geroko uzten hasiz gero, hoztu, lotsatu, eta azkenerako ahaztu. Xabier Mendiguren Elizegi

Astearte goizean **astelehenean** utzitako lekuan ekin genion berriro lanari. Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Egun berezietan lore sortak jasotzen diren bezala, Dabidekin bizitzen hiru bat urte neramatzala, **astelehen** buruzuri eta guztiz arrunt batean lore sorta bat ez, baina kilo bat gerezi jaso nituen bulegoan. Patxi Zubizarreta

Astelehen buruzurian, jende askorik gabe pistetan, eguna lehor eta eguzkitsu, elurra primeran topatu omen zuen Alteza Gorenak. Hasier Etxeberria

Inaxiok ez zuen jadanik gogoan nori okurritu zitzaion Ernioko buelta hura egitea **astelehen** gorri batean, baina igual zitzaion. Pako Aristi

Hodeiez beteriko **astelehen** ilun batean jakin genuen, Euskalgintza Orokorraren Batzar Nagusian, baina ezin genuen sinetsi, edo ez genuen sinetsi nahi: Kolko Mitxoletak erretreta hartu eta hor nonbaiteko bazter galdu batean erretiratuko zela erabaki zuen. Jon Alonso

Marinel hura, Candidaren gizona, berriro ikusi nuen, handik urtebetera, baina hilda, **astelehen** euritsu batean, La Najako arkupeetatik, noraezean, uretan bere aurpegia ikusten ez zuelako arduratuta... Paddy Rekalde

Nora hoa, Gabriel Aresti, gabardina txuri horretan bilduta eta gorbataren korapiloa dagoeneko laxaturik, Bilbotik goizeko lehenengo trenean iritsi berri, Eibarko Estaziño kalean barrena ibiltari, bertako beharginak oraindik nagiak ateratzen ari diren garagarrileko **astelehen** oskarbi honetan? Pedro Alberdi

Kontua da, Pampaneirako jaiak zirela-eta, harantz egin zutela Sergiok eta Sarak bizikletan, abuztuko **astelehen** eguzkitsu batean, egun pasa. Joan Mari Irigoien

Eta horregatik lana bukatu eta etxera joan zen, eta Sporting txapeldun zen **astelehen** pozgarri hartan itzuli zen. Bego Montorio

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Zuzen zabiltza, lagun, hara, **astelehen** goizean, hain zuzen. Juan Garzia

Esan bezala, **astelehen** ilunabarrez gertatu zen dastamen aldaketarena, hori gauza segurua da. Karlos Linazasoro

Hastapenetik **astelehen** gaua ene aldia zen. Menane Oxandabaratz

Astelehen goizean prest egongo zen pastela, eta denbora sobran izango zen **astelehen** arratsaldeko festarako. Koro Navarro

Astelehen arratsean, Hello etxera etorri zen, nire gurasoak ezagutzera. Josu Zabaleta

Oraintxe bertan, ihauteri **astelehen** gauerdian, zenbat jinebra ote dabil dantzan Leitzako tabernatan? Patziku Perurena

Beste bailara batzuetan **astelehen** ihauteriz; orduan, hazixeagoak ere ibiltzen direlarik eskean: Pello Zabala

Euriaren ondoko gardentasuna giroan, bustiaren distira gauza guztietan, izarniadura hori eta Rosamari ezagutu izanaren harri ukaldia kopetaren erdian, aspaldi ez bezalako **astelehen** egunsenti ederra. Koldo Izagirre

4 *astelehen inaute* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Euskal Herrian, Tolosako inauteriak Tolosako eta inguruko herrietako euskaran astearte inautea "asteartita" da (horko euskaran zaldun inautea "zaldunita" esaten den bezala, eta **astelehen inautea** "astelehenita"). ETC-entziklopedia

Astelehen Inautea (tokiko euskaran, "Astelehenita") bereziki tolosarrak eta inguruko herrietakoak biltzen diren eguna da. ETC-entziklopedia

5 *Astelehen Santu* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Eliza Katolikoan, **Astelehen Santua** Aste Santuko bigarren eguna da. ETC-entziklopedia

Hiru eta hamaika ordaindu zituen soinean zeuzkan galtzerdiak George Streeteko Sparrowen astearte santuan, ez, **astelehen santuan** , eta ez zeukan urraturik bat ere haietan. ETC-literatura, saiakera

Gaur **Astelehen Santua** duk. ETC-literatura, saiakera

Pearsek 1916ko **Astelehen Santuan** Irlandako Errepublikaren aldarrikapena irakurri zuenean, Irlanda irlandarrentzat errepublika independentea izango zela ari zen aldarrikatzen. ETC-prentsa

Astelehen Santua izaki, ostatua jendez lepo zegoen bazkalostean, eta dozenaka lagun atxilotu zituzten, tartean hango nagusiak. ETC-prentsa

6 *Astelehen Zibernetiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Astelehen Zibernetikoa (ingelesez, "Cyber Monday") "Esker emate eguna Thanksgiving Day" edo Esker Oneko Egunaren ondorengo astelehenean ospatzen da. ETC-entziklopedia

7 *inauterietako astelehen* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Inauterietako astelehena da, eta Olaizola II.a-Mendizabal II.a Xala-Zubietaren aurka ariko dira. ETC-prentsa

Hogei lagunek osatzen dute taldea, eta egun osoko jaia egingo dute **inauterietako astelehenean** . ETC-prentsa

8 *Pazko astelehen*

Lekuka hori egin dute funtsean, Mendekoste-kari besta handiak dituzten toki batzuetan, eta **Pazko astelehena** hautatu. Herria

Pazko astelehena jaieguna da Herbeheretan. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

abuztuko astelehen (8); **astelehen arratsaldean** (35); **astelehen arratsean** (15); **astelehen arte** (7); **astelehen batean** (7); **astelehen eta asteartean** (7); **astelehen gauean** (55); **astelehen goiz** (19); **astelehen goiza** (10); **astelehen goizaldean** (8); **astelehen goizean** (83); **astelehen goizeko** (12); **astelehen guziz** (10); **astelehen hartan** (8); **astelehen honetan** (8); **astelehen huntako** (16); **astelehen huntako partida** (8); **astelehen huntan** (92); **helduden astelehen** (7); **iragan astelehen** (7); **joan den astelehen** (10); **mendekoste astelehen** (7)

astelehena arte (27); **astelehena bitartean** (12); **astelehena da** (7)

astelehenaz geroztik (21)

asteko astelehenean (8); **astelehenean atxilotu** (7); **astelehenean berriz** (7); **astelehenean bertan** (28); **astelehenean bildu** (8); **astelehenean bilduko** (16); **astelehenean egin** (18); **astelehenean egindako** (11); **astelehenean egingo** (24); **astelehenean ekingo** (7); **astelehenean eta asteartean** (13); **astelehenean hasi** (37); **astelehenean hasiko** (44); **astelehenean hasitako** (7); **astelehenean hil** (11); **astelehenean izan** (8); **astelehenean izango** (9); **astelehenean jakin** (10); **astelehenean jokatuko** (14); **aurreko astelehenean** (7); **bazko astelehenean** (9); **datorren astelehenean** (91); **datorren astelehenean hasiko** (9); **heldu den astelehenean** (44); **helduden astelehenean** (82); **hurrengo astelehenean** (20); **igandean eta astelehenean** (8); **iragan astelehenean** (51); **joan den astelehenean** (124); **joan zen astelehenean** (20); **joanden astelehenean** (26); **lehengo astelehenean** (8); **mendekoste astelehenean** (7); **pasa den astelehenean** (10)

asteleheneko partida (32); **datorren asteleheneko** (7); **helduden asteleheneko** (50); **joan den asteleheneko** (9)

astelehenera arte (23)

astelehenero bezala (7)

astelehenetan ere (9); **salbu astelehenetan** (7)

astelehenetik aurrera (41); **astelehenetik larunbatera** (8); **astelehenetik ortziralerat** (8); **astelehenetik ostiralera** (29); **datorren astelehenetik** (9); **joan den astelehenetik** (7)

bazko astelehenez (22); **mendekoste astelehenez** (8)

---

astelehenero 1 *adlag* astelehen guztietan.

Astelehena zen eta, **astelehenero** bezala, goizeko bederatzietan neukan eskola. Joxerra Garzia

Inork kontatu behar izan zion hasieran dena joan-etorria zela, **astelehenero** bezalaxe, eta gero itsasadarretik hegazkin bat agertu zela eta bonba eztandak entzun zirela Ibarra de San Juan ibiltokian. Lutxo Egia

Kugler jaunak sekulako poza ematen dit **astelehenero** Cinema&Theater aldizkaria ekartzen didanean. Josu Zabaleta

Ni azokara nentorren, **astelehenero** bezala, irin-zakuak hartu eta irina erostera. Anjel Lertxundi

Astelehenero maisuak azkazalak, kamisetaren lepoa eta ilea miatzen zizkien, zorriengatik. Joseba Urteaga

2 ***asteleheneroko*** *izlag*

Aurreikusita zegoen arren, Gobernuak ez zuen gaia aztertu bere **asteleheneroko** bileran, eta ez zuen zehaztu noiz aztertuko duen. Berria - Euskal Herria

Berria-k ez zuen domekako edizioan jasotzerik izan, eta **asteleheneroko** baraualdiaren ostean, hiletaren ingurukoekin eta bateko eta besteko adierazpenekin osatu zen astearteko orria, gertaerarekin berarekin baino. Iñigo Aranbarri

---

asteleun *iz* asteguna.

Hara abiatu ginen, Gwilym arropa beltzez jantzirik, nahiz eta **asteleun** goiza izan, eta ni berriz atzealdea pasaratua zeukan sargazko janzki batez. Koro Navarro

Berrikitan, **asteleunetako** mezetan ibiltzen zen. Herria

---

asteme *iz* asto emea.

Hogeita hamar gamelu esnedun eta hamar **asteme**. Elizen arteko biblia

Aita Kixek, **asteme** batzuk galdu zitzaizkiolarik, esan zion Saul semeari: -Hartzak morroi bat eta hoa astemeen bila. basamortuan hazitako **asteme** basatiaren antzeko: beroaldian nork baretu horren irrika? Elizen arteko biblia

---

astenia *iz* indarrik eza.

Astenia fisikoa eta psikikoa. Anjel Lertxundi

---

asteño *iz adkor* astea.

Urteko lanari esker, aski sos baztertua **asteño** bat bederen goxoan ibiltzeko nahi nuena ikusiz nahi nuen tokianøø Janbattitt Dirassar

---

astenosfera *(corpusean ez dago; ETCn **195** agerraldi) iz* Lurraren geruza solidoa, 100 kilometrotako sakoneran dagoena.

Izan ere, lurrazala ez dago geldirik; litosfera **astenosferaren** gainean bata bestearen kontra mugitzen diren plakez osatuta dago, nolabaiteko puzzle mugikor baten moduan. ETC-prentsa

Litosfera **astenosfera** beroak ordezkatzen du, eta **astenosfera** beroaren dentsitatea litosferarena baino txikiagoa denez, nahiz eta mendebaldeko lurraldeak menditsuenak izan, inguruko eremu litosferikoekiko masa-defizita erakusten dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurrazalak eta goi-mantuaren zati batek litosfera osatzen dute (grekoz lithos harria da), eta arroka leunagoz osatutako **astenosfera** izeneko geruzaren gainean dago (grekoz indarrik gabea esan nahi du); baina termino horiek ez dira denen gustukoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Astenosfera litosferaren azpian dago eta lurrazaletik 100 kilometroko sakoneran aurkitu daiteke. ETC-entziklopedia

Hortik abiatuz, berak ondorioztatu zuen existitu behar zitekeela gainazal gogor eta indartsu bat (litosfera izena jarri zion) geruza ahul eta plastiko baten gainean **astenosfera** deitu zion), bigarren geruza hau jariakorra izanik. ETC-entziklopedia

Astenosfera : fluxu eran portatzen den mantuaren zatia da. Geruza horretan uhin sismikoen abiadura jaisten da. ETC-entziklopedia

Goiko geruzan dagoen eta **astenosfera** deitzen zaion beste geruza ez hain trinko eta fluidoago baten gainean irristatzen dira. ETC-entziklopedia

---

asteondar *iz ipar* aste bukaera.

Hel duden **asteondarrean** iragan beharra den partidaren tokia eta tenorea ez dira oraino ezagutuak.**Asteondar** eder baten pasatzeko parada berriz ere izanen da Aihertar eta Antzuolarren artean. Herria

2001 eta 2002 koaren ondotik, horra 3garrena aurten, joan den bi **asteondarretan** iragan dela, azkena joan den larunbat arratsaldean, Iholdin. Herria

---

asteoro *adlag* astero.

Goiz hartan, **asteoro** bezala, tren geltokira joanik, txartela sakelean, igurikian naiz. Jose Angel Irigaray

Urtean zehar ia **asteoro** etortzen zen Lekeitiora, bere familiak aspalditik etxe bat baitzeukan. Joxemari Iturralde

---

aster *iz Asteraceae* familiako landarea, loreak izar formakoak dituena.

Bitxilore, **aster** eta San Jose lorez beteriko burdinbidean aurrera urruntzen zen. Juan Kruz Igerabide

Autoak mukuru zeuden: **asterrak** , bainujantzi bustiak, eguzkitan beltzarandutako lepoak, sodaz eta hot dog-ez koipeztutako ahoak... Lopez de Arana

---

asterdi *iz* astegunetako aste zatia.

Joan zen ostegunean egin zuen **asterdiko** entrenamendu saioa Larretxeak egurrean. Berria - Kirola

Proba handi bat edo final baten aitzinetik larunbatean egin ohi dut prestaketa proba osoa eta **asterdian** serieak. Berria - Kirola

---

asterisko *(corpusean ez dago; ETCn **90** agerraldi, horietatik **59** azken sei urteetan; orobat **izartxo** ETCn **127** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **izartxo** agertzen da) iz* izar formako ortografia-marka (*), hitz edo esaldi bat nolabait markatzeko erabiltzen dena. ik **izartxo 2**.

Indar gehiagoz azpimarratu du pasarte hau eta **asterisko** bat ipini dio alboan, garbi gera dadin non pausatu den bere pentsamendua. ETC-literatura, saiakera

Marquínezek sinatutako azalpen soil horren aldamenean, ordea, **asterisko** bat dago, aurrerago erantsia, eta irakurlea alboko beste ohar honetara daramana: ETC-literatura, saiakera

Bitorrek bat zuen **asterisko** gorri handiz nabarmendurik. ETC-literatura, saiakera

-Odol analisietan **asterisko** piloa. ETC-literatura, saiakera

Asteriskoa duten egunak larunbataren barruan sartzen dira, larunbataldi bat hilero. ETC-prentsa

Bakar bakarrik norberaren eremuan, jada ezin dugu kolesterol pixka bat ere eduki, ez eta transaminasetan **asteriskorik** ; ezin dugu kariesdun hortz bat izan, ezin dugu griperik hartu, ez behintzat bajarik. ETC-prentsa

Parekide bai, baina **asteriskoaz** . ETC-prentsa

Labaka "gorputzetik" abestea eta "hitzei behar adina **asterisko** " jartzera etorri da eta Gaztelumendik Anoeta eta Illunbe alderatzearekin batera, talde sena helarazi nahi izan die kantukideei. ETC-prentsa

Etzi grebara deituta gaude emakumeok, **asterisko** eta guzti. ETC-prentsa

Emakume hitzaren ondoan ezarritako **asterisko** hausnartuak bizitza propioa hartu zuen eta, boteretuta, itzuri egin nahi izan zion aurrean zuen kategoria itxi eta zurrunari. ETC-prentsa

Singularretik pluraleraino, baina beste pauso bat eman dugu azken garaietan, **asteriskoa** gaineratuz, generoaren zailtasunak eta labirintoak adierazteko asmoz. ETC-prentsa

Asterisko horrek, emakumeez gain, heteropatriarkatuak zapaldutako beste giza taldeak ere barnebiltzen ditu. ETC-prentsa

Aitzitik, goiko aldean **asterisko** txiki bat badu, begizta baten aurrean gaudela ematen du aditzera. ETC-zientzia, zuzenbidea

(A) irudian **asterisko** bidez adierazitako zatiaren handipen altuagoa dugu B irudian. ETC-zientzia, zuzenbidea

Manhattan uhartea zeharkatzen duen Wall Streeten lerroa -1633ko defentsa-harresian oinarritutakoa- **asterisko** bidez irudikatu dugu, Hudson eta East ibaien aldameneko bi muturretan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lerro hauetatik aurrera, glosario honetako noziook kasuan-kasu dagozkien siglekin idatziko dira, Entrevernesko kideek adierazten dituzten moduan, eta **asterisko** batek segituta, irakurlea glosario honetara etor dadin behar duen beste. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bere izena, "asteriks" ahoskatzen da eta frantsesezko hitzetik dator, **asterisko** esan nahi duena. ETC-entziklopedia

Asterisko batez markatu dira, Klaudio Ptolomeok hiri baskoien artean zerrendatu zituenak, eta beraz, ziur baskoienak direla. ETC-entziklopedia

---

asterismo *(corpusean ez dago; ETCn **56** agerraldi) iz* itxuraz irudi jakin bat osatzen duen izar multzoa. ik**konstelazio**.

Konstelazio askoren barruan **asterismo** nabari bat egoten da, hain zuzen ere konstelazioari izena ematen diona. ETC-zientzia, zuzenbidea

Asterismo edo izar efektua erakusten duten errubiak normalean kaboxoietan mozten dira, efektu optikoa nabarmentzeko. ETC-entziklopedia

Idi-ohoin edo Itohoinak, Gurdi edo Karroa, zazpi izar distiratsuk osatzen duten **asterismo** zabala da, Hartz Handiaren konstelazioaren barnekoa. ETC-entziklopedia

Kuartzo arrosa batzuek errutilo-orratz batzuk dituzte. Orratz horiek **asterismo** bat eragiten dute igorritako argian. ETC-entziklopedia

Orionen Gerrikoa konstelazioaren barruko **asterismo** ezagun bat da. ETC-entziklopedia

Regulusek eta beste bost izar zertxobait ahulagok (Zeta Leonis, Mu Leonis, Gamma Leonis, Epsilon eta Leonis) osatzen duten taldeari "igitaia" izena ipini zaio, zeina Leoren burua irudikatzen duen **asterismo** bat den. ETC-entziklopedia

Beranduago, **asterismo** horri, beste lau izar gehitu zitzaizkion, baina izena ez zen aldatu. ETC-entziklopedia

---

astero 1 *adlag* aste guztietan.

Astero ari dira bilerak egiten, akordioa zehazte aldera. Berria - Euskal Herria

Grebalarientzat janariz, arropaz betetako kamioiak iristen ziren **astero** . Jon Maia

Halere, **astero** dozenaka lagun hiltzen dira eta ehunka zauritu. Gotzon Garate

Astero sartzen da inor Espainiatik kanpo. Lutxo Egia

Zarautzen liburutegi publiko bakar bat zegoen orduan, fraideen komentukoa, eta hara bidaltzen ninduen amak **astero** , liburuak ekar niezazkion. Anjel Lertxundi

Eta, aurreraxeago: “ **Astero** ordubetez Natura ikasten genuen”. Pablo Sastre

Urtebete pasatxo zeraman amonak zaharrentzako ospitale hartan, eta ni oraindik bisitan joan gabe, ama **astero** joaten zela jakin arren. Xabier Mendiguren Elizegi

Latina! Uztaritzen pasatzen genituen orenak, **astero** , borroka. Piarres Aintziart

-Astero idatziko dizut, eta dirua bidaliko dizut zuk ere niri idazteko, lasai egon. Jon Muñoz

Lehen mustraka edo ikasketa saioak iazko irailean hasi zituzten, eta horretan dihardute **astero** , ostegunetan. Berria - Kultura

Bat-batean ari den bertsolari hori **astero** edo egunero ariko da adiskide edo kideekin, bat-batekoa izango dena lantzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Milioi laurdenetik gora bisita ditu **astero** . Txema Ramirez de la Piscina

-Astero etortzen al da Xantilli? Jokin Muñoz

- Bolondres eske azaltzen zituan **astero** legez. Koldo Izagirre

2 *astero-astero* *(orobat **aste-astero**) adlag*

Mendekuz, ordea, **astero-astero** eskutitz bat idazten zion. Gotzon Garate

Astero-astero , ez dakit asteko zein egunetan, ikastetxetik ateratzen zen Montse eguerdian, bazkalondoan zehatzago esanda, mekanografia ikastera, handik ehun metro eskasera zegoen beste moja-eskola batean, Jesuitinetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Astero-astero milaka eta milaka biztanle hiltzen da gerrek eta borrokek jota Afrikan edo Asian. Pello Salaburu

Behin berriz, andreari eta bioi arnasa laburtzen hasi zitzaigun, **aste-astero** , larunbata hurbildu ahalean. Aingeru Epaltza

3 *asteroko* *izlag*

Asteroko soldata galdu egin zuen, eta Brightman's Attic bete-betean lanean eduki ezean, nekez edukiko zuen inolako diru-sarrerarik. Oskar Arana

Asteroko kontua jakinik, eta berak ulertzen ez zituen gaiez hitz egiteko bero gehiegi zegoela-eta, ez zuten horretan gehiago jarraitu. Joxemari Urteaga

Garaziko trinketak ere hor ditugu beren **asteroko** partidekin eta ikusle jarraiki horiekin. Herria

Asteroko proba zen hura, tribukideak tribuko zirela frogatzekoa. Iñaki Iñurrieta

Zuen **asteroko** bi mila dolarreko soldata arriskuan jartzeko beldurra zenuten. Fernando Rey

Halaber, garai hartan etxeko labeetan egiten baitzen **asteroko** ogia, alorretatik ere sartzen ziren bestalde ogi azauak, leatxunetan horiek ere. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Asteroko eskutitz hura, ordea, oso berezia zen. Gotzon Garate

hori guztia, **asteroko** atseden-eguneko opariez gain eta nork bere borondatez edo botoren bat betetzeko Jaunari eskainitako opari eta sakrifizioez gain. Elizen arteko biblia

Asteroko elkarretaratzea amaitu ostean ez dabil jende askorik herriko plazan. Urtzi Urrutikoeetxea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amak astero (3); **astero agertzen** (3); **astero astero** (46); **astero astero joaten** (3); **astero bezala** (6); **astero bi** (4); **astero bildu** (3); **astero egin** (6); **astero egin ohi** (4); **astero egiten** (14); **astero etorri** (3); **astero etortzen** (5); **astero gehienez** (3); **astero hitz egiten** (4); **astero joan** (4); **astero joaten** (9); **astero jokatzen** (4); **bat astero** (3); **gero astero** (3); **herrian astero** (3); **ia astero** (12)

asteroko gutuna (3); **beren asteroko** (3); **gure asteroko** (3)

---

asteroide 1 *iz* antronomian planetan txikia.

Egun batean, leku, mundu, **asteroide** haren alde dramatikoarekin edota siniestroarekin egin nuen topo. Bernardo Atxaga

2 *asteroide eraztun* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Pluto-Kuiper Express izeneko proiektua, Plutonera joateko lehen proba zen, eta denbora berean Kuiper izeneko **asteroide eraztuna** aztertuko zuen. ETC-prentsa

Izan ere, **asteroide eraztun** bihurtuko zen nebulosa alderdia planetesimalez betea zegoen. ETC-entziklopedia

3 *asteroide gerriko*

Beste kometak baino hobeto kontserbatu da eguzki sistemaren mugan dagoen Kuiper **asteroide gerrikoan** sortu zelako, eta inoiz ez delako Eguzkira gehiegi gerturatu. Berria - Gaiak

Kometa duela 4.500 miloi urte sortu zen, Eguzki sistemaren mugan kokatua dagoen Kuiper **asteroide gerrikoan** . Berria - Gaiak

4 *asteroide orbitakide* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Asteroide orbitakide guztiek orbita berezi eta erlatiboki egonkorrak dituzte, Lurrera gehiegi gerturatzea ekiditen dutenak. ETC-entziklopedia

5 *asteroide troiatar* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Artizarrak ez du satelite naturalik. Hainbat **asteroide troiatar** ditu, ia-satelite bat den 2002 VE68 eta bi behin-behineko troiar, 2001 CK32 eta 2012 XE133. ETC-entziklopedia

6 *asteroideen eraztun* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Gygnus konstelazioak, gainera, badu beste egokitasunik ere: ez Kuiper eraztuneko, ezta **asteroideen eraztuneko** objektuek ez dute eremua iluntzen. ETC-prentsa

Planetesimal horiek, birlen jokoan bezala, **asteroideen eraztuneko** planetesimal batzuk kanpora bidaliko zituzten eta beste batzuen lastertasuna areagotuko zuten. ETC-entziklopedia

7 *asteroideen gerriko* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Cañaveral lurmuturretik (AEB) 1973ko martxoaren 3an aireratu zen espaziontzia, eta ez zuen betebehar samurra: **asteroideen gerrikoa** igarotzea eta Jupiterren inguruetara iristea. ETC-prentsa

Alde batetik, **asteroideen gerriko** nagusia deitzen dena dago: hor dauden milaka asteroide ezagutzen ditugu, haien orbita zehatza eta guzti. ETC-prentsa

NASAren Dawn zunda -egunsentia- martxoan heldu zen **asteroideen gerrikoan** dagoen Zeres planeta nanora. ETC-prentsa

Asteroideen gerrikoan zeuden planetesimalek Jupiterren grabitazio-indarraren perturbazio handia zuten, eta ezin zuten elkartu planeta bat sortzeko. ETC-entziklopedia

8 *troiar asteroide* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

2207 Antenor Jupiter planetaren L5 Lagrange puntuan, planetagandik 60° atzera orbitatzen duen, eta, beraz, troiar eremuan dagoen **troiar asteroide** bat da. ETC-entziklopedia

Eguzki-sisteman dauden beste asteroide-populazio batzuetatik bereizteko, adibidez **troiar asteroideak** edo Lurretik-gertuko asteroideak. ETC-entziklopedia

Asteroide ugari aurkitu dira, horien artean 2223 Sarpedon, 2260 Neoptolemus, 2363 Cebriones eta 2456 Palamedes **troiar asteroideak** eta 3494 Purple Mountain asteroide eponimoa. ETC-entziklopedia

537 asteroide ere aurkitu zituen, horien artean 2867 teins eta 2207 Antenor **troiar asteroidea** . ETC-entziklopedia

Hala ere, Zeresek baditu beste asteroide batzuk: 1 erresonantzia orbitalean, denbora batez **troiar asteroideak** direnak. ETC-entziklopedia

---

astesantu *iz* aste santua.

Horregatik deituko zioten haizegorri hotz txorrotx horri, garizuma haizea eta **astesantu** haizea. Pello Zabala

---

astetxo *iz adkor* astea.

Behin eta berriro entzuten zituen honelakoak: "Beste **astetxo** bat, Pavel Ivanovitx, gera zaitez gurekin beste astexo bat". Jose Morales

A zer **astetxoa** . Berria - Ekonomia

---

astezken ik **asteazken**.

---

asti 1 *iz* zerbaitetarako ematen, hartzen edo izaten den denbora.

Aitzakia horretaz, aita sainduaren hitzaldiak oro -eta ez ziren guti- kurritzeko **astia** hartu nuen eta ohartu nintzen Vatikanoko Estatuaren zerbitzuko higatua zen gizon hark ez zuela sekula ahanzten nolakoak izan behar zuten estatuburuen arteko harremanek. Piarres Xarriton

Ni Buenos Airesen barrena ibiltzen naiz eta neure **astia** hartzen dut, dagoeneko mekanikoki apika, bebarru baten arkuari eta sarrerako langari begira geratzeko; Borgesen berri postatik izaten dut eta haren izena irakasle terna batean edo biografia-hiztegi batean ikusi ohi dut. Juan Garzia

Astia eman diot damu dadin, baina ez dio bere desleialkeriari uko egin nahi izan. Elizen arteko biblia

Bere baitaratzeko **astia** izan dezan, promenatzen gara une batez basoxkan zehar; gero etxeari buruz daramat. Jon Muñoz

Eskolara hasi aitzineko arratsaldeetan seiak aldera karrikaratzen nintzen, nehongo presarik gabe, zernahitarako **astia** bainuen. Xabier Montoia

- **Astia** badogu apur bat jateko zure trena urten baino lehen -esan zion. Iñaki Mendiguren

Hellok eta biok **astia** izan dugu, aste betean, elkar hobeto ezagutzeko. Josu Zabaleta

Ttipiren gaztiguak prestatzeko **astia** eman zidan: Ximurrak bere zangoa balaztan hondoratu baino lehenago kontu nion nire aldeko atxikigailuari. Aingeru Epaltza

Haren azken erantzuna aditzeko **astia** izan nuen. Edorta Jimenez

Astia urritzen zihoakion. Itxaro Borda

Orduan **astia** hartzen zuten batzuek ala besteek elgarrekin mintzatzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bi gauza behar dira horretarako: osagaiak eta **astia** . Luis Elberdin

2 *astia eman*

Bortz segundoko **astia eman** nion neure buruari, anaiaren plateraren ondotik nabala hartu arte. Aingeru Epaltza

Hau Kristoren atleta hasi berria zen oraindik eta, bila zetozkionen mehatxuen berri entzun eta hurbil zirela sumatzean, haien haserreari baretzeko **astia eman** nahirik, horretarako prestatua zuen zulo batean ezkutatu zen. Askoren artean

Orduan, Dumbledorek bere arreta guztia leiho-ertzean zegoen txori batengan jarri zuen, eta horrek **astia eman** zion Harryri begiak izaraz lehortzeko. Iñaki Mendiguren

Zerbitzariek poliki-poliki hasi zuten zerbitzua, berandu zetozenei iristeko **astia emateko** , eta gero platerak berriro ekarri beharrik ez izateko; eta aspaldiko bainulariek, ohitura zutenek, beren egonaldia aurreratzen ari zitzaienek, interes biziz begiratzen zuten atera, hura zabaltzen zen bakoitzeko, aurpegi berriak azaltzen ikusteko gogoz. Josu Zabaleta

Orain, hilda nagoenez gero, **astia eman** zidak pentsatzeko eta guztiaz jabetzeko. Juan Garzia

Maila teknikoan ere munta handiko oharrak egingo genituzkeen, horretarako aukera eta **astia eman** izan baligute. Berria - Kultura

Astia eman diot damu dadin, baina ez dio bere desleialkeriari uko egin nahi izan. Elizen arteko biblia

Semeari **astia eman** nahi dio bere mugimenduak segitzeko. Jokin Muñoz

Kioskoaren albo batean bildurik, Pitok eta Polik hormarena egiten zidaten, eta argazkiei eta letra handiei gainbegiratu bat egiteko **astia ematen** zidan. Pedro Alberdi

Han egon ginen biok lurrean, ez dakit zenbat denboraz, luzeegi nolanahi ere, gehiegi pentsatzeko **astia eman** baitzidan. Ramon Saizarbitoria

3 *astia hartu*

Bisitaria **astia hartuz** ari zen papera irakurtzen. Edorta Jimenez

Orduan **astia hartzen** zuten batzuek ala besteek elgarrekin mintzatzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azaldu zionez, emaztea zare bat besapean atera zen herritik eta Zuhalmendi auzotegirantz abiatu zen, itzuli baten egitera, **astia hartuz**, baratuz, fruitu pikorrak bildu eta zarean emanez. Elena Touyarou

Museoaren ondoko hotel batera deitutako kazetarien zenbait galderari ez guztiei erantzuteko **astia hartu** zuten hogei minutu, zehazki. Berria - Kultura

Denbora alde izanez eta kasko hartan bi gogoetaren egiteko **astia hartuz**, errexki asma ditaizke nolako giza-harremanen lekuko izana den Ahadi-ren ondotik goratasunez dener nagusi den mendi zoragarri hau. Herria

Eta urlia horiei abisaiek **astia hartzen** duten bezain pronto espero ditudala. Juan Garzia

Astia hartu du konturatzeko, Argosek Leonen ate parean jarraitzen duela etzanda. Hasier Etxeberria

Ruche jaunak **astia hartu** zuen. Jon Muñoz

Nik ezer erantzuteko **astia hartu** baino lehen, salmahaiaren atzealdetik lasterka atera eta besarkatu egin ninduen. Oskar Arana

Nahi nuke, bai, liburu hau gure politikari eta gizarte arduradunen eskuetan egongo balitz, eta hemen esaten dena haiek ere patxadaz irakurtzeko **astia hartuko** balute. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bere burua txukuntzeko **astia hartu** zuen, ordea, eta hala, mantala lisatu zuen eta ilea atondu, atea zabaltzera joan aurretik. Mirentxu Larrañaga

David, ziur al zaude ez duzula bilkura hau atzeratzea nahi, hausnartzeko eta beharbada laguntza eskatzeko **astia hartzeko**?". Oskar Arana

Begiak ilunpeetara ohitu arteko **astia hartu** zuen. Anjel Lertxundi

4 *astia izan*

Berehala egiten badut pixa, ordea, gutxi egingo dut, eta maindireek lehortzeko **astia izango** dute, nire gorputzeko berotasunaren eraginez. Itziar Otegi

Oraindik **astia bazuenez**, Nikek probetxu atera nahi zion bisitaldiari; ordenagailua piztu eta posta zabaldu zuen. Antton Olano

Eguna argitzean - bezperatik atondu baikenituen gauzak **astia izan** genezan - berehala heldu genion aurreko eztabaidaren hariari. Imanol Unzurrunzaga

Apur bat atertu zuela eta, Alavesek prestatutako hirurogeita hamar pertsonako lan taldeak zelai erdia garbitzeko **astia izan** zuen arren, arratsaldean elurra egin zuen berriro ere. Berria - Kirola

Itzulerako bidea astiro-astiro egin zuen, pilotuak grabitatera ohitzeko **astia izan** zezan. Berria - Gaiak

Bitarte hartan, **astia izan** ninan lasai hausnartzeko. Anton Garikano

Lurrean etzanda, zuhaitzen gainetik, loroa erortzen ikusi zuen leku berean, Nofuturen tankera zuen zerbait agertzen eta oihan sakonerantz urruntzen ikusteko **astia izan** zuen Maxek. Jon Muñoz

'Xanpion'! - erran zuen Mikelek bere ordularia begiratuz - itzuliño turistiko baten egiteko **astia badugu**! Ramuntxo Etxeberri

Ahal duzun guztia egin mujikak eskuarte handikoak eta aberatsak izan daitezen, eta, ikasi nahi badute, ikasteko **astia izan** dezaten, baina ez hartu makila eskuan eta esan: "Ikas ezazue!". Jose Morales

Astia izan zuen, gorritzen hasitako hosto arteko eguzki printzei begira, bala arrasto haiek nork eginak zitezkeen, eta zergatik, pentsatzeko. Koldo Izagirre

Eskolara hasi aitzineko arratsaldeetan seiak aldera karrikaratzen nintzen, nehongo presarik gabe, zernahitarako **astia bainuen**. Xabier Montoia

Atzera ohean sartu eta argia itzali eta gero, artean Hausterren botaka saioak entzuteko **astia izan** zuen berriz ere zulo beltzean erori aurretik. Iñaki Iñurrieta

Eguzkirantz zuzen goazenez, eta altuera handitan bostehun metro gorago igo orduko ehizak kilometro batzuen aldea kentzeko **astia izaten** duenez, gerta daiteke horiek gure mailara iritsi eta berriro beren lastertasuna harrapatu orduko gu eguzkian galdu izana. Josu Zabaleta

Hala eta guztiz ere, Aristotelesen logikako zati garrantzitsuak latinera itzultzeko **astia izan** zuen. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asti askorik (4); **asti gehiago** (9); **asti handirik** (14); **asti pixka bat** (3); **du asti** (3); **dut asti** (4); **nahikoa asti** (6)

astia badugu (3); **astia behar izan** (3); **astia du** (5); **astia eduki** (5); **astia eman** (14); **astia ematearren** (3); **astia ere** (8); **astia franko** (4); **astia hartu zuen** (9); **astia hartuko** (3); **astia hartzeko** (3); **astia hartzen** (7); **astia izan baino** (3); **astia izan dezadan** (3); **astia izan du** (3); **astia izan nuen** (13); **astia izan zezan** (3); **astia izan zuen** (19); **astia izanen** (3); **astia izango du** (3); **astia ukan zuen** (3); **badugu astia** (3); **egiteko astia hartuz** (3); **egiteko astia izan** (8); **egoteko astia** (3); **erantzuteko astia hartu** (3); **ere astia** (4); **esateko astia** (5); **gogoeta egiteko astia** (4); **hartu astia** (3); **hartzeko astia** (6); **haserreari baretzeko astia** (3); **hori pentsatzeko astia** (3); **horretarako astia** (5); **ikusteko astia izan** (3); **irakurtzeko astia** (7); **izan zuen astia** (4); **ohitzeko astia** (3); **pentsatzeko astia izan** (8)

adierazteko astirik (3); **agurtzeko astirik** (4); **aldatzeko astirik** (5); **apenas astirik** (3); **arnasa hartzeko astirik** (6); **aspertzeko astirik** (8)

astirik eman barik (4); **astirik eman gabe** (30); **astirik emango** (7); **astirik ematen** (4); **astirik ere eman** (6); **astirik ere ez** (31); **astirik ere gabe** (3); **astirik ere izan** (5); **astirik ez du** (3); **astirik ez dut** (4); **astirik ez dutela** (8); **astirik galdu gabe** (14); **astirik galtzeke** (3); **astirik galtzen** (4); **astirik hartu gabe** (8); **astirik hartzen** (5); **astirik izan aurretik** (4); **astirik izan baino** (6); **astirik izan ez** (5); **astirik izan gabe** (6); **astirik izanen** (6); **astirik izango** (18); **astirik izaten** (7); **astirik ukan** (25); **astirik utzi gabe** (5); **astirik uzten** (5)

ateratzeko astirik izan (3); **atseden hartzeko astirik** (3); **aztertzeko astirik izan** (3); **begiratzeko astirik ere** (3); **beste ezertarako astirik** (10); **bukatzeko astirik** (5); **bururatzeko astirik** (3); **dut astirik izan** (8); **egiteko astirik eman** (5); **egiteko astirik ere** (4); **egiteko astirik ez** (6); **egiteko astirik gabe** (6); **egiteko astirik izan** (5); **egoteko astirik** (5); **emateko astirik** (6); **entzuteko astirik** (4); **erantzuteko astirik eman** (11); **erantzuteko astirik izan** (4); **ere astirik gabe** (3); **erreakzionatzeko astirik** (4); **esateko astirik eman** (5); **esateko astirik izan** (4); **ez astirik ez** (3); **ez da astirik** (3); **ez dago astirik** (7); **ez daukat astirik** (8); **ez dezagun astirik** (3); **ez diat astirik** (4); **ez du astirik** (7); **ez dugu astirik** (13); **ez dut astirik** (27); **ez nuen astirik** (8); **ez zegoen astirik** (3); **ez zuela astirik** (3); **ez zuen astirik** (19); **ez zuten astirik** (6); **ezagutzeko astirik** (4); **ezer esateko astirik** (4); **ezertarako astirik eman** (4); **ezertarako astirik izan** (6)

galtzeko astirik (7); **garbitzeko astirik** (3); **gehiago irakurtzeko astirik** (3); **gehiagorako astirik** (4); **gelditzeko astirik** (4); **hartzeko astirik eman** (4); **hasteko astirik** (6); **hausnartzeko astirik gabe** (3); **hitz egiteko astirik** (5); **horretarako astirik** (9); **ia astirik** (4); **ibiltzeko astirik** (8); **ikasteko astirik** (3); **ikusteko astirik** (6); **janzteko astirik** (4); **jartzeko astirik** (6); **joateko astirik izan** (3); **kentzeko astirik** (3); **mintzatzeko astirik** (3); **nuen astirik izan** (4); **ohitzeko astirik** (4); **pentsatzeko astirik ez** (3); **pentsatzeko astirik gabe** (4); **prestatzeko astirik** (5); **sentitzeko astirik** (3); **ulertzeko astirik** (3); **zuen astirik izan** (9)

---

astialdi *iz* astia dagoen aldia.

Ez zuen atsedenik ez **astialdirik**, antza. Xabier Olarra

Astialdi hori zu ikustera joateko baliatuko dut. Jon Muñoz

---

astialditxo *iz* astialdi lburra.

Nire andregaia ingeleseko itzultzailea da eta etxean egiten du lan; bulegoan **astialditxo** bat dudan bakoitzean, deitzen diot maite dudala esateko, nik uste nuen tontokeria txiki hauekin pozik sentitzen zela bera. Juan Martin Elexpuru

Goiz partean aurkitu zuen **astialditxo** bat kioskora joan eta ehizari buruzko aldizkari bat erosteko. Pako Aristi

---

astigar 1 *iz* zuhaitz handia, hostoak erorkorrak eta alboarenaren antzekoak, loreak mordo zintzilikarietan eta haziak hego moduko mintz gogor batez hornituak dituena; zura, trinkoa eta luzaz irauten duena, zurgintzan erabiltzen da *(Acer campestre* etab.).

Astigar baten adar gaztea. Jose Morales

Sabaia aspaldi behera etorria zen, eta **astigar** zuri handi bat hazi zen garai batean sakristia izandako lekuan. Xabier Aranburu

Mielek atzera egin du, eta bidexidorrera itzuli aurretik **astigar** hostoek aurpegian jo diote. Pello Lizarralde

Sagasti zaindu gabe bat, erlauntza multzo bat bertan behera utzia, etxola bat basoan **astigar** -ziropa distilatzeko. Oskar Arana

2 *astigar arrunt* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Astigar arrunta ("Acer campestre") "Sapindaceae" familiaren espezie baten izen arrunta da. ETC-entziklopedia

Errekaren ertzean, haltza, hurritza, **astigar arrunta** , lizarra, pagoa eta beste hainbat zuhaitz daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hurren, **astigar arrunta** , Acer campestre, lur hauetako dama pinpirina, txori-buru samarra; itxurarekin, udazkena erakustearekin urteko lanak egintzat jotzen dituzten hori horietakoa. ETC-prentsa

Horrela, mota askotako zuhaitzak aurkituko ditugu gure ibilbidean, gaztainondo, gorosti, zumar, haritz kandudun, urki, **astigar arrunt** , pinu, pago, haltz, ezki eta hurritzak, besteak beste. ETC-prentsa

3 *astigar gorri* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Astigar gorria ("Acer rubrum") Sapindaceae familiako zuhaitz espezie bat da, hosto erorkorrekoa. ETC-entziklopedia

Bigarren multzokoen estereo batek 160 eta 210 litro arteko gasolinak adina berotzen dute: amerikar zumarra (Ulmus americana), gereziondo beltza (Prunus serotina), Douglas izeia (Pseudotsuga menziesii), **astigar gorria** (Acer rubrum), zilar-astigarra (Acer saccharinum), amerikar alertzea (Larix laricina) eta paper urkia (Betula papyryfera). ETC-prentsa

4 *astigar japoniar*

-Inguru hauek hain beroak izanda, **astigar japoniarraren** hostoak guztiz gorritu aurretik ihartzen dira, ezta? Ibon Uribarri

5 *astigar zorrotz* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Astigar zorrotza ("Acer platanoides") "Sapindaceae" familiaren espezie baten izen arrunta da. ETC-entziklopedia

Ondoan dituen xarma (Carpinus betulus) eta **astigar zorrotza** (Acer platanoides) alde ederrean bizi eta hazten ari dira, porlanez inguratutako zulo batean beharrean lur puska ederrean landatuta baitaude... ETC-prentsa

Biribilgunearen erdian jarri duten zuhaitzaren enborra **astigar zorrotzarena** da. ETC-prentsa

6 *astigar zuri*

Orduan ekin zion **astigar zuriaren** sustraien ondoan zulatzeari. Xabier Aranburu

Argitasun motel baten pean den eremuan, harresi ondoan, bi **astigar zuri** eta palmondo bat hauteman ditu Joxek. Pello Lizarralde

7 *Freeman astigar* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Bere kide hurbila den astigar gorrirekin ("Acer rubrum") hibrido ezaguna sortu du **Freeman astigarra** ("Acer x freemanii") hain zuzen ere, landare apaingarri ezaguna dena. ETC-entziklopedia

8 *japoniar astigar* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Japoniar astigarra ("Acer palmatum"), astigar espezie bat da, Japoniako eta Hego Koreako jatorria duena. ETC-entziklopedia

---

astigmatiko *iz* astigmatismoa duen pertsona.

Nolanahi ere, margolari **astigmatiko** batek, betaurreko gabe pintatzean, garbi fokaturik ikusiko lituzke marra bertikalak, eta lausotuxeak marra horizontalak (edo alderantziz). Irene Aldasoro

---

astigmatismo *iz* begiaren akatsa, irudia desitxuratzen duena.

Aberrazio esferikoa eta kromatikoaz gainera, **astigmatismoa** ere izan ohi du begiak. Irene Aldasoro

El Greco-ren margolanetako irudi luzangak haren **astigmatismoaren** isla direla iradoki izan da, baina dudazkoa da espekulazio horren baliozkotasuna. Irene Aldasoro

Ez miopiak, ez **astigmatismoak** , ez presbiziak, ez kataratak ez zioten inoiz ikusmena lausotu edo ahuldu. Jon Muñoz

---

astiki *adlag* astiro.

Astiki zihar duen, egunero legez, ahokada bakoitza ahoan gozatuz, idi hausnarti baten gisara. Aingeru Epaltza

Astiki-astiki , zakurren bat edo katuren bat izutu nahi ez duzunean bezala, nire eskuak grabagailua piztu eta libreta bildu zuen mahai gainetik. Aingeru Epaltza

Erreformaren hazia **astiki** , arrunt **astiki** ari zen kontzen Amikuzeko lur elkorrean. Aingeru Epaltza

---

astillerotar *izlag/iz* Astillerokoa, Astillerori dagokiona; Astilleroko biztanlea.

Baina esatea egitea baino errazagoa da, eta bat ez, bi traineru sailkatu ziren bermeotarren eta **astillerotarren** artean. Berria - Kirola

Hurrengo bi jardunaldietan hiru marka hautsi dituzte **astillerotarrek** . Berria - Kirola

---

astin *izond* hntustez betea. ik **harro**.

Bai, adiskideak, halakoxea nintzen ni orduan: harroa, **astina** , fantasia baztergabe batek azpian hartua eta oso-oso neurekoia. Matías Múgica

---

astinaldi *iz* astindua.

Emaiok **astinaldi** eder bat! Lopez de Arana

Méhudin zaharra barrez ari zen **astinaldi** lehorrez, husten ari den zahagi bete baten antzera. Une hartan, **astinaldi** batek telegrafo etxea dardarazi zuen. Karlos Zabala

---

astinarazi, astinaraz(i), astinarazten du *ad* astintzera behartu.

Erreminak ezker eskua airean **astinarazi** dio. Pello Lizarralde

Bai, alea bahean astindu ohi den bezala, ale bat ere galdu gabe, halaxe **astinaraziko** dut Israel herria, nazio guztietan sakabanatuz. Elizen arteko biblia

Hazel Morse emakume ilehori bikaina zen, gizaseme askori mihia klaskarazten dioten horietakoa, eta "horail" hitza esanez bat burua maltzurki **astinarazten** . Mirentxu Larrañaga

---

astindu, astin(du), astintzen **1** du *ad* zerbaiti kolpez edo higidura bortitzez eragin; harrotu; kontuak argitara atera.

Haren eragina **astintzen** saiatu izan garen arren, hortxe egon da beti. Joseba Zulaika

Aldizkako saiotan **astintzen** zuen haren bizkarra lehendakariaren elezko metraileta. Joxan Elosegi

Eskuak **astinduz** eta malkoekin saritzen nau. Bernardo Atxaga

Horietako bat hartu eta niregana dator, liburua buru gainetik **astinduz**, abaniko bat balitz bezala; saltoka dator, pailazoarena eginez. Xabier Etxabe

Burua **astindu** eta urdaiak zabaldu nituen. Joxan Elosegi

Une hartan, Poseidon agertu zen, Ulisesi gorroto zion jainkoa, itsasoetako erregea, lurra **astintzen** duena. Juan Kruz Igerabide

Etelka Springerrek burua **astindu** zuen. Anton Garikano

Adibidez, larunbatean, arratsaldeko laurak aldera, geltokiaren obretako oholezko espaloiaren muturrean jantzi urdin argiko emakume gazte bat lasterka ari zen atzeraka, barrez, zapi bat **astintzen**. Monika Etxebarria

Tom hautatuen artetik eroria zen, eta ematen zuen haren erortzeak euren buruarengan zuten uste ona **astintzen** zuela, euren bizitzarako zituzten aurreikuspenei ezkortasunerako atea irekitzen ziela. Oskar Arana

Inoiz ez bezalako idazleak, nahiz oraingoz denei aski ongi etorriko litzaigukeen behin edo beste tradizioko gure idazleen liburuak apaletatik hartu, errautsa **astindu** eta esku artean erabiltzea. Pello Salaburu

Zuhaitz gandorretan arratsalderoko dantza hasi dute abarrek, elkar **astintzen**. Alberto Barandiaren

Herritik gertu, arrantzale batzuek errekaren ertzean eserita pasatzen zuten arratsaldea, beren kanaberekin, eta gobada egiten ari ziren emakumeek, zango biluziak errekan sartuta, arropa **astindu** eta abestu egiten zuten. Koro Navarro

Ikusleen samalda ikara baten zutundu da, haizeak **astindutako** zuhaitz gazteak dira, gura dute higitu baina elkarren preso daude, zango barik edo zangoloturik. Koldo Izagirre

On Camillo korrika abiatu zen aldare aurrera, egunkaria aidean **astinduz**, baina Kristok ez zion hitz egiten utzi. Koldo Biguri

Halakoetan, noiznahi, gure gogoak ezetza ematen dio adimenak eskainiari edo nahimenak eskatuari, eta gure gogoak adimena **astintzen** jarduten du, adijarduneko akatsa edo nahimenaren okerra edo oroimenaren hutsunea non dagoen argiarazi nahian. Jenaro Garate

Zirrara bitxi batek **astindu** dio barrua gizonari, eta mezu argia igorri; inolako zalantzarik gabe jakin du sentimen berberak ukitu dituela biak une horretantxe, berak esandako hitz horien harira. Imanol Zurutuza

Zegoen lekutik altxatu eta **astindu** egin zuen mutila ingelesak. Xabier Aranburu

Hegoak **astintzeko** indarra bildu, hala ere, eta aireratu egin zen. Jon Muñoz

Batzuk kamioi handietan pasatzen ziren bide bazterrak **astinduz**, beste batzuk oinez neguko abriguekin, lokatz artetik nekez. Joseba Sarrionandia

Abel zutitu, arropa **astindu** eta metro batzuk atzerago jarraiki zaio. Pello Lizarralde

Bi ordu sosegu oso-osoan egon zen, gero, ordea, bat-batean gure ahalegin guztiengatik ere ohean zutiturik oihuka hasi zen besoak **astinduz** izu laborri batek hartu izan balu bezala: Josu Zabaleta

Alfonbrak **astindu** behar dira, errezelak ipini. Karlos Linazasoro

Zirrara batek **astintzen** nau ahotik oinetaraino, lehendabiziko aldia baita aitak musu ematen didala ezpainetan. Anjel Lertxundi

Orgatxoak olana zuri bat zuen atzean, eta, haizeak **astintzen** zuenean, argitasunez eta hautsez betetako bidea ikusten zen; itsugarria zen argia. Josu Zabaleta

Trenak zubi handia igaro zuenean, ibaiko ur urdina atzetik abiatu zen, hura **astintzera**. Juan Kruz Igerabide

Gure barrena **astintzen** duten indar asko jantzi litezke negarraren metaforaz. Pako Aristi

Bazterretik agurtu egiten dituzte eskuak **astinduz**, larruzko jakak besoetan zintzilik. Lander Garro

Burua **astindu** du, gogoeta-mutur bat uxatu nahi balu bezala. Iban Zaldua

Nanak buztana **astindu**, botikaz betetako ontzirantz abiatu eta miazkatzen hasi zen. Julen Gabiria

Eta, lurra gorrotatzen eta behin eta berriro maradikatzen nuela, ukabilaz jo nuen, kolpatu nuen eta **astindu** nuen, eskuak eta besoak mindu arteraino. Joan Mari Irigoien

Ardoak **astintzen** zion mihia, jakina. Joan Mari Irigoien

Eta lurrikara batek **astindu** dizu zentzua. Hasier Etxeberria

Aspertu arte **astindu** zaitu, gupidarik gabe. Rafa Egiguren

Betazalak **astindu** zituen, miruak hegalak zelan, halaxe. Edorta Jimenez

-Zer nahi duzu, mutikoa **astintzea**? -galdetu zion aitak. Jon Muñoz

Eta une hartantxe, berriro ere, zartako batek **astindu** nau. Txillardegi

Gizonak egunkaria airean **astindu** zuen, euliak uxatzen balego moduan. Edorta Jimenez

Filosofiak irakurlearen eguneroko irudiak **astintzen** ditu, batez ere, haiekiko jarrera garbitzen duelako. Xabier Amuriza

Handik beste astebetera, ordea, beste itsasikara batek **astinduko** zituen. Joan Mari Irigoien

Printzeak zilarrezko kanpaitxo bat **astindu**, eta zerbitzaria etorri zen. Matías Múgica

Baina pentsatzen jarriz gero, tren geltokietan painueluak **astintzea** baino agur esateko era politagoa zen inoren eskularruari tira egitea, hatzetatik xuabe, ume jaioberriek egiten diguten eran, ia konturatu ere egin gabe. Harkaitz Cano

Eta izarak, haizearen apatxek **astindua**, bi makilaren artean lotutako uhina ematen du Joseba Sarrionandia

Zertan habil ordea, kontu zaharrak **astintzen**? Xabier Mendiguren Elizegi

Émile belaunikatu egin zuan, negar eta negar ari zuan, zotinek bizkarra **astintzen** ziotean. Josu Zabaleta

Amak utzi egin zion oina **astintzeari** eta neskatilarena egiteari. Anton Garikano

Dar-dar egin zuen, gorputz meharra **astindu** egin zen. Lutxo Egia

Mutil hark **astindu** ere egiten zuen. Fernando Rey

Zaplazteko bat ematea gaizki ikusia zegoen, baina zartailu batez ipurdia **astintzea** zigor noblea zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Burua **astindu** zuen Irenek, jostalari eta kezkati artean. Fernando Morillo

Ama belauniko jarri zen, eta nik burua **astindu** nuen. Jesus Mari Mendizabal

Hanka bat **astindu** zuen, lokatza kentzeko, eta oinetakoa airean irten zitzaion gela barruan. Juan Kruz Igerabide

Eta orobat ikusia nuen usoen hegada aire geldia hausten, eguna soinetik kentzen ari balira bezala **astinduz** hegalak. Juan Garzia

Ezpatarik zorrotzenak **astindu** dira erraldoi ikusezinaren aurka, munstro horrek, askotan, buztinezko zangoak dituela kontuan hartu gabe. Txema Ramirez de la Piscina

Ikaralditxo batek **astindu** zuen idazkaria. Migel Angel Mintegi

-Bederatzi mila dolar horiek patrikatik **astindu** beharko ditudala. Xabier Olarra

Hauetako egun batean esango diot Manexi, eta voil‡ -eskuak haserre bezala **astindu** ditu. Eider Rodriguez

Arretaz zapaldu bazuen ere, pixka bat kulunka egiten zuela sentitu zuen, inguruko harriak **astinduz**. Joanes Urkixo

Beste bihotz batek hegoak **astindu** zituen, antza, Egutxi agurearen bularrean. Ibon Uribarri

2 (era burutua izenondo gisa)

zaldun-taldeak gudu-lerrotan antolatuak, oldarraldi eta erasoaldiak alde batetik eta bestetik, babeski **astinduak**, lantza-multzoak, jaurtikitako geziak, urrezko gudu-jantzien distirak eta era guztietako bular-oskolak. Elizen arteko biblia

Dena kontatuko dizut -esan zion azkenik bisir **astinduak**. Patxi Zubizarreta

3 (era burutua izen gisa)

Baina Bartzelonaren **astinduek** ez zioten Alavesi gehiegi eragin. Berria - Kirola

Lagun Arok joanekoan Tauri eman zion **astinduak** bizitasun polita emango dio neurketari. Berria - Kirola

Duela bi aste Espainian izaniko erasoek eragindako **astinduek** bizi berria eman diote, paradoxikoki, Europako Batasuneko konstituzioa aurki onartzeko itxaropenari. Berria - Mundua

Lurreko gauzen ardura oro baztertuta jainkozko kontsolamenduaz bakarrik gozatzen baitziren, nahiz eta atsekabeen **astindua** eta tentaldien eragina jasan, pobretasunaren besarkadatik ez askatzeko erabaki sendoa hartu zuten. Askoren artean

Baina handik gutxira Floraren **astinduek** atera ninduten loaren sakonenetik, ama hiltzen ari zela oihuka. Ramon Saizarbitoria

Josebak hondoraino zapaldu zuen azeleragailua, eta autoaren **astinduak** atzerantz bidali zuen Adrian eserlekuan. Bernardo Atxaga

Beroak hezetasunari eragiten dionean sortzen da, eta eragin horren kemenak indarrez aterarazten duenean haizearen **astindua**. Santiago Iruretagoiena

-Kuestioa duk gure barbi horren erritmo-kutxa probatu nahi dudala, ea **astindu** onekoa den. Patxi Iturritegi

Bihurrikatzen denean bere buztanaren inarrosaldiak eraikinaren **astinduekin** nahasten ditu. Xabier Olarra

Hala da ze, agindu ziguten meza ekaitza baretu eta behingoan egin zen,eta hura entzun ostean abiatu ginen,miratiz osorik, ekaitzaren **astinduak** tarteka Tajo ibaian ere igarri izan baitziren. Edorta Jimenez

Esan zuen jendea desagertu egiten zela, gaueko haizeak eta uraren indarrak eramanik, edo dinamitaren eztandaren **astinduarekin**. Juan Kruz Igerabide

Negozio-zikloa eratzeko, negozio-sistemaren erantzunek prima facie garrantzitsuagoak dirudite kanpoko **astinduek** baino. Iñaki Mendiguren

Gurdi batek azken **astindua** hartu zuen espaloiaren ertzaren kontra jotzean. Karlos Zabala

Halako gorputz **astindua** hartu nuen, non aulkia puskatu egin baitzen nire azpian. Josu Zabaleta

Goizean errezelen **astindu** arinarekin eta auto eta zomorroen zarata astunarekin esnatu. Harkaitz Cano

Bidean, pentze biluzi eta haizeek **astinduen** erdian, deus ez bailitzan, sokaz loturik, alhan zabiltzan ardiak zenbatu nitzakeen, bizpahiru bildots zeuzkatela aldamenean, libre eta galernarekin punpeka. Itxaro Borda

-Bazekiat zer den - pentsatu dut; barne-**astindua** nola-hala menderatzen saiatu naizelarik. Txillardegi

Jasotako **astinduak** merezi zuen erantzuna jaso zuen. Txema Ramirez de la Piscina

-Emaiozu **astindu** bat zure traste horri! Entzuten didazu? Josu Zabaleta

Zorionez, hain zegoen neskatoa mozkorturik non, saioan eragin nizkion **astinduen** indarrez, txahala bota baitzuen zoruaren gainean goitika, eta jan ahal izan nuen zerbait, ulertzen didazue. Joxan Elosegi

Mutilei non geunden galdetu diet eta oraindik han geundela esan didate, trena abiatu berria zela: nonbait **astinduak** iratzarri nau. Urtzi Urrutikoetxea

Oihu, bultzada eta **astinduen** artean, hiru dozena funtzionario armatuk osatutako bi ilaren tartean pilatuta, ordenarik gabe atera zituzten, arrapaladan. Jon Maia

Harexekin eta beste lagun birekin joan nintzen gero gauean, zerbezetan eta gure ingeles kaskarrari **astinduak** ematera. Edorta Jimenez

Anbulantziak balantza bortitz bat eragin zion sueroaren botilari, eta hotza sentitu zuen berriro Johnnyk, anbulantziaren ezker-eskuineko **astinduek** jelaginik zetorren ura gorputz osora zabalduko baliote bezala. Pako Aristi

Bat-batean, itzali egin ziren haren aieneak; ez, ordea, **astinduaren** hotsak. Anjel Lertxundi

Barruak **astindu** bitxi bat eman zion Harryri. Iñaki Mendiguren

Ikaratzeko moduko **astinduak** ematen dizkio haizeak gure dendaño ezdeusari. Xabier Montoia

Zein beldurrek, beraz, behartzen zaitu bilatzera, muga guztien gainetik, hausturen, **astinduen**, etenduren gainetik, mendebaldearen halabehar historiko-transzendental handia? Xabier Arregi

Henneri gustatu egiten zitzaion **astinduak** hartzea; halaxe da egiaz. Koro Navarro

Euri langarra ari zuen, hego-sortaldeko haize leun baten **astinduek** sorgindua. Edorta Jimenez

Abiatu bezain laster Gregoriok esku irinez zuritua atera du haize hegoaren **astinduak** eta euri tanta bakanak sentitzearren. Pello Lizarralde

Elur-maluta txiki bat zen urakan baten erdian **astindua**. Fernando Morillo

Han joan zen Txitxikov, eta etxeko nagusiek, oin-puntetan jarririk, luzaz lagundu zioten beren diosalekin eta zapi-**astinduekin**. Jose Morales

Gure autobusean jende asko zegoenez ordu horretan, jendea igo edo jaisten denean izaten diren **astinduez** baliatuz, saihets-hezurren artean sartzen nion ukondoa. Xabier Olarra

Hiru aldiz ukitzen du ura arrastadan, gero hegal-**astindu** bizian aldentzen da, bistatik galtzen, desagertzen. Fernando Rey

Ezpainetatik bizkarrezurraren azkeneraino jaitsi zaizun **astinduak** arnasa eragozten dizu. Lourdes Oñederra

Astindua saihestu nahiko balu bezala. Ibon Uribarri

4 (adizlagunekin)

Makila hartu zuen orduan eta, patiora irten zelarik, dinbi-danba **astindu** zuen balizko lapurra. Patxi Zubizarreta

Burua leun **astintzen** dabil beti. Urtzi Urrutikoetxea

Ildo bertsutik, Enron, Tyco, Worldcom edota Vivendi-Universal enpresen inguruan gertatu den zalapartak gogotik **astindu** berri du ekonomia kapitalista. Iñaki Heras

Liburu hau azaldu baino lehen, Voltaireren prosak bere Zapalduen alde-rekin ederki **astindu** zituen orduko giro ilustratuak. Juan Martin Elexpuru

Gero, bere eskuak oliotan igurtzi zituen eta nire gerria di-da **astintzen** hasi zen. Jasone Osoro

Lehenbizikoarekin, Frantziako gizartea erdirik erdi **astindu** eta gauza asko betiko alda zitezen lagundu zuen bete-betean, eliza eta botere zibila erabat bereizten, esaterako. Karlos Zabala

Kaioak, ni korrika batean ikusirik, hegoak zalapartaka **astindu**, eta harrotu bat eman dio Leopardiren bertso zaharrari. Anjel Lertxundi

Horrexegatik, nik uste, harrigarriro **astindu** ninduten turuta-sail zorrotz haiek. Txillardegi

Urduri **astintzen** zituen eskuak, keinu betiere amaigabeak eginaraziz. Mirentxu Larrañaga

Ipar-mendebalak gogor **astintzen** zituen hostorik gabeko adarrak. Joxemari Urteaga

Gertakaria ohikoa zelarik ere, une batez, ordu arte zaintzen egondako poliziak euren ordezkoak zekartzaten furgoietara hurbiltzearekin batera, fabrikaren atarian pilatutako tresneriaren metal hotsak eta distira nabarrak osoro **astindu** zuten haren barrunbea. Pedro Alberdi

Paellera bat bailitzan gora eta behera **astindu** eta mikro bat azpian jarrita soinu zirkular berezia sortzen du tranpolinak. Harkaitz Cano

5 ***astin-astin egin***

Aldi berean, bi gizon gazte agertu zitzaizkion Heliodororri; oso indartsuak eta ederrak ziren, soineko bikainez jantziak. Alde banatan jarririk, zigorkatu egin zuten etengabe, **astin-astin egina** utzi arte. Elizen arteko biblia

Gutxien uste duzula altxatuko zaizkizu hartzekodunak; iratzarriko dira eta **astin-astin egingo** zaituzte. Zeu izango zara orduan haien harrapakin. Elizen arteko biblia

Hura, ohikoan gizon alai eta barkabera izanik, loa galdutakoan basatia zen, eta jaitsi eta Antonio Ribera y Díaz de Heredia **astin-astin eginda** utzi zuen, irin orea egiteko arrabolaz jo ondoren. Felipe Juaristi

6 ***astindua eman***

Horiek alboan hartuta lortu du Greziako futbolaren zutabe zaharkituei **astindua eman** eta azken urteotan horren makurtuta zeuden buruak zutunik jartzea berriro. Berria - Kirola

Eguneko azken finalean, gizonezkoen curlingean, Kanadak **astindua eman** zion Finlandiari (10-4). Berria - Kirola

Lau urtean behin **astindua ematen** dio bertsolaritzaren munduari. Berria - Harian

Brent petrolio upelak apur bat beherantz egin zuen atzo, baina jaitsiera horrek ez zuen eragotzi erregai nagusiaren prezio altuek mundu osoko burtsei **astindua ematea**. Berria - Ekonomia

Liburu bakarreko idazlea ez zen arren, Susan Sontang-en produkzio oparotik Gaixotasuna metafora gisa izenekoa da berebiziko **astindua eman** zidana. Berria - Kultura

Prentsari **astindua emango** zioagu, sekulakoa. Lander Garro

Eragiketa hark egundoko **astindua eman** zion estatuari. Iñaki Iñurrieta

Ni buruz behera jarrita **astindua ematen** ari zirenean, nire sakelatik aterarazi zuen gizon etsaien samalda hark. Fernando Rey

-Eskirol zikina! -hots egin zuen Pepponek, alkandora-paparretik helduz eta **astindua emanez**. Koldo Biguri

Nik ez nuen dirurik eskiak eta botak alokatzeko, baina Annickek bereak uzten zizkidanean, lurrera nahita erortzen nintzen, libratuko ninduen **astindua ematen** ari

nintzaiolakoan aldi bakoitzean. Joseba Urteaga

Sirakusatar batek erromatar hari halako **astindua eman** izanak, ezin duk imajinatu zer ondorio izan zuen horrek nigan. Jon Muñoz

-Andres, esan ezak zerbait! -Karmenek larri, nire sorbaldei **astindua emanez**. Inazio Mujika Iraola

Garrasika eta berebiziko **astindua emanez**, atera zen espiritu gaiztoa. Mutikoa hilik bezala gelditu zen. Ia denek hila zegoela zioten; Elizen arteko biblia

7 *astindua jaso*

Bazirudien Frantziak egundoko **astindua jasoko** zuela, baina azken minutuetan Espainia lasaitu egin zen, eta Frantziak ederki baliatu zuen. Berria - Kirola

Atano III.ean jokatu zuten, eta berealdiko **astindua jaso** zuten orduan Xala-Pascualek, kontrarioen merituen eta euren partida negargarriaren erruz Berria - Kirola

Eroritakoan, ileetatik heldu dizu, eta, altxarazi ondoren, sekulako **astindua jaso** duzu hormaren kontra, eman eta eman aspertu den arte. Rafa Egiguren

8 *barrenak astindu*

Barrenak astintzen dizkio. Alberto Barandiaren

Batasunaren aburuz, "Leoren heriotzak guztion **barrenak astindu** beharko lituzke, eragile politiko, sindikal eta sozial guztienak, behin betiko sakabanaketa amaitzeko dinamika iraunkor bati heltzeko konpromisoa ekartzearekin batera». Berria - Euskal Herria

9 *barruak astindu*

Horixe izan zen gizonaren nahiz emakumearen **barruak astindu** zituen sentimena, hildakoengandik betiko bereiztea baino are mingarriago ageri zitzaien sentimena, bizidunengandik betiko bereiztu behar hori. Imanol Zurutuza

Barruak astindu zizkion ideia horrek Ruche jaunari, berehala hasi baitzen, une batez, lehentxeago desiratu zuenaren kontrakoa desiratzen. Jon Muñoz

Neuk zergatik jakin gabe, **barruak astindu** eta asaldatu egin zizkidan bisita hark. Juan Luis Zabala

10 *goitik behera astindu*

Bat-bateko zorabio batek **goitik behera astindu** zuen, ordea, eta zigarroa, axolagabe, udazkeneko hosto astun baten moduan erori zen lurrera. Berria - Kultura

Horretara jo aurretik, baina, urte batzuk lehenago izandako gertaera baten berri emango dut, auzoa **goitik behera astindu** baitzuen: Joxe Arregiren hilketa, torturaturik; bailarako herri batekoa zen, eta haren familia ezaguna zen gure auzoan. Juan Kruz Igerabide

Eneko (oso haserre, besoak **goitik behera astinduz**): Ez esan alukeriarik! Zure zinismo pozoitsu horrek gaixotu egiten nau. Patxi Iturritegi

Inoren heriotzak aspaldiko hilabeteetan ez bezala, Koldo Lopez gaztearen hilketak **goitik behera astindu** zuen herria. Harkaitz Cano

Bat-bateko zorabio batek **goitik behera astindu** zuen, ordea, eta zigarroa, axolagabe, udazkeneko hosto astun baten moduan erori zen lurrera. Fernando Morillo

Krisi ederra: **goitik behera astintzen** nau. Monika Etxebarria

Ezin zitekeen neure gorputzetik aterea izan **goitik behera astindu** ninduen negar-zotina. Eskarne Mujika

Senarra ohartu zenean, **goitik behera astindu** zion hotzikarak bizkarrezurra. Xabier Mendiguren Elizegi

11 *hautsa astindu*

Garbi zegoen hango **hautsa astindua** zutela oinetatik; eta erretiratze hori egiteko izan zuten itxaropenaren baikortasuna bat zetorren amerikarren belaunaldi bizia bere nahitaezko itzulera egiten ari zen damuaren bizitasunarekin. Iñaki Mendiguren

"Ni bota nazatela zaborrontzi batera" esan zuen, paparrean zigarro **hautsa astintzen** zuela. Ramon Saizarbitoria

Ateetan hainbat bala zulo zituela, etorritako bide beretik desagertu zen emakumeak gidatutako auto beltza, Durrutik bere mahoizko praketako **hautsa astintzeko** beta hartu aurretik. Harkaitz Cano

Longaineko botoiak lotu, galtzetako **hautsa astindu**, eta pixka bat apaintzen saiatu zen, zarpa beltz haiek nondik zetorren lau haizetara aldarrikatzen zutelakoan. Karlos Zabala

12 *hautsa astintzeko*

Izebak **hautsa astintzekoa** hartu eta zerran jotzen zuen osaba eta kare hauts pila bat harrotzen zuen jantzietatik; gero, buruan joz, esnarazi eta ohera bidaltzen zuen. Pello Lizarralde

13 *hautsak astindu*

Proposamenak **hautsak astindu** ditu Gasteizen, kirol arloan Ibaia baita Alavesek duen ondare erabiliena. Berria - Kirola

Behin, zerbitzatzen zuen anaia batek, deboziozko trikimailua erabiliz, **hautsak astintzeko** tunika eranztera eragin zion; eta bere aurrean erantzi zuenean, anaia hark garbi ikusi zuen saihetseko zauria eta, eskua bularraldetik bizkor pasatuz, hiru atzez ukitu zion eta haren tamaina neurtu ahal izan zuen. Askoren artean

Beste era bateko **hautsak astintzen** nituen eta orain baino hobeto ordaintzen zidaten. Jasone Osoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

airean astindu (12); **astindu bat** (28); **astindu bat eman** (7); **astindu batez** (6); **astindu behar** (15); **astindu behar izan** (6); **astindu beharko** (7); **astindu ditu** (22); **astindu du** (39); **astindu duen** (5); **astindu dute** (5); **astindu ederra** (32); **astindu ederra eman** (20); **astindu egin** (22); **astindu egin zuen** (7); **astindu egiten** (14); **astindu handia** (5); **astindu itzela** (5); **astindu nahi** (7); **astindu ninduen** (19); **astindu nuen** (20); **astindu on** (6); **astindu txiki bat** (5); **astindu zion** (16); **astindu zituen** (52); **astindu zituzten** (11); **astindu zuen** (217); **astindu zuen airean** (5); **astindu zuten** (20); **bat astindu zuen** (5); **batek astindu** (44); **batek astindu ninduen** (13); **batek astindu zuen** (11); **behera astindu** (8); **besoa astindu** (5); **besoak astindu** (5); **bestera astindu** (8); **burua astindu** (101); **burua astindu eta** (17); **ederki astindu** (6); **eskua astindu** (7); **gogor astindu** (28); **goitik behera astindu** (7); **guztiak astindu** (5); **hegoak astindu** (7); **heldu eta astindu** (5); **indarrez astindu** (5); **jaunak burua astindu** (5); **makila astindu** (7); **osoa astindu** (8)

astindua eman (12); **astindua ematen** (5)

astinduko du (7)

airean astinduz (7); **besoak astinduz** (10); **burua astinduz** (16); **eskuak astinduz** (7); **gainetik astinduz** (7); **hegalak astinduz** (5); **hegoak astinduz** (9)

---

astindualdi *iz* astinaldia.

Nire zapatek **astindualdi** ederra hartu dute honez gero eta zolua erabat higatuta edukitzeaz gain, lokarriak ere zisko eginak dituzte. Harkaitz Cano

Harriak agoantatuko dizkizu eman nahi dizkiozun astindu guztiak, baina gizona **astindualdi** latz batekin bizitza guztirako porru eginda gelditzen da... ni nagoen moduan. Pako Aristi

---

astindualditxo *iz adkor* astinaldi xumea.

- **astindualditxoa** egin zidan Brezok dultzeki lepotik-. Joxemari Iturralde

---

astinduka *adlag* astinduz.

Egunero etorri beharko dut, zerbait jango badu. "Oki isats **astinduka** ari zen, Virginiari begirik kendu gabe". Bernardo Atxaga

---

astindukada *iz* astindu bortitza.

Pauso hotsak gure eskaileran, **astindukada** bat gure ate birakarian. Josu Zabaleta

Eguneroko gauza normaletarako haiez baliatu behar zuenean, **astindukada** bortitzez, besoaren bultzada azkarrez, erabiltzen zituen, berez ibiltzen utzi nahi ez balie bezala, berak nahi zuena egitera ukatu eta beste gauza bat egiten utzi nahi ez balie bezala. Josu Zabaleta

astindura *iz* astintzea.

"Gauzak ondo doaz Kilimanjaron" izeneko ipuinaren zati batzuk irakurri nituen eta testu on batek eman ohi digun plazeraren bi aurpegiak sentitu nituen: atsegina, asea eta betetasuna batetik, eta, aldi berean, ikara eta **astindura**. Joxean Agirre

---

astindutxo *iz adkor* astindu txikia.

Astindutxo batzuk eman dizkio orduan, eta azkenik piztu egin du. Jokin Muñoz

Jendeak txalo egin zuen berriro, eta Lockhartek jarraitu egin zuen, Harryri betaurrekoak sudurraren puntaraino jaitsarazi zizkion **astindutxo** bat emanez. Iñaki Mendiguren

Irribarre egin zion Harryri, taldeak kapitainen atzean elkarren aurrez aurre jarri zirenean, eta bere barruan halako **astindutxo** bat sentitu zuen Harryk, bere ustez nerbioekin zerikusirik ez zuena. Iñaki Mendiguren

---

astingailu *iz* astintzeko tresna.

Tenientearen gidaritzapean, saiagarri zen guztia saiatu nuen: bereizte magnetikoak, flotazio bidezkoak, leunketazkoak, baheketazkoak, likido astunekin, **astingailuarekin**. Juan Garzia

---

astinka *adlag* astintzen, astinduz.

Trena bafaka zihoan, intzirika, **astinka**, bihurgunetik bihurgunera, fantasmak bezala ilargi gabeko gauari atxikitzen zitzaizkiola ziruditen Istriako mendien artean. Josu Zabaleta

Orduan, mingaina bagina sarreratik uzkiraino pasatzen hasi zitzaidan; ondoeza eragiten zidan gauza heze hark; xurgatu egiten zidan, mihia sartzen, eta nire mokorrak **astinka** hasi ziren nik agindu gabe, gora eta behera, mingain hura nire ipurdiaz arduratzen zen bitartean, dena txistuz blai eginez. Juan Martin Elexpuru

Sei artaburuak kantuz zihoazen gurdibidetik, lizar ondora iritsi arte: bat-batean, ordea, amorruz beterik beso-**astinka** ikusi genituen. Koldo Biguri

---

astinketa *iz* astindua.

Alfonbra gora eta behera bizkorrago astinduz gero, berriz, uhinaren tontorra nabarmenagoa izango da **astinketa** hasi den muturraren inguruan. Irene Aldasoro

---

astintasun *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* harrotasuna.

Astintasun goxo batek kixkortzen nau barren guzia. ETC-literatura, saiakera

Guzti hori agertzen da obra harriaren trinkotasunean eta **astintasunean**, zuraren irmotasunean eta malgutasunean, brontzearen gogortasun eta distiran, kolorearen argitzean eta iluntzean, tonuaren ozentasunean eta hitzaren adierazkortasunean gibeleratzen den bitartean. ETC-literatura, saiakera

---

astintzaile *iz* astintzen duena.

-Txakur hori sartu bada, gu ere bai -Harryk arnasestuka, batera eta bestera zalapartaka, adar maltzur eta **astintzaile** haien artetik sartzeko aukeraren bila; baina ezin zen zuhaitzaren sustraietara inola ere hurbildu, haren kolpeen irispidean jarri gabe. Iñaki Mendiguren

Astintzaile eta astinduen paperak aldatuta ere, EAJ beti da onuradun. Txema Ramirez de la Piscina

Horrela, hirukote berria osatu zen: olerkaria gitarra-jole, argentinarra abeslari, eta Julen pandero-**astintzaile**, lurreko arlote txirulariaren noizbehinkako laguntzaz. Jon Arretxe

Bere sermoi eta hitzaldi gehienak, beti **astintzaileak** eta sarritan probokatzaileak, Rhin Garaian zehar zeuden moja-komentu ugarietan aletuz doaz. Joan Mari Lekuona

---

astintze *iz* zerbaiti kolpez edo higidura bortitzez eragitea.

Hain zuzen, Teheran hiriburuko geofisika behatokiak Richterren eskala irekian 3,6ko indarra zeukan lur **astintze** bat hauteman zuen ordu horretan bertan. Berria - Mundua

Hemen zentzugabeko makila-**astintze** gutxi dagoenez, zuetariko askok nekez sinetsiko duzue hau magia denik. Iñaki Mendiguren

-Black Eagletik -esan zuen mutilak, eta zeharretara sartu eta saski bat utzi zuen lurrean botila-**astintze** hots batez. Irene Aldasoro

---

astinzale ik **astintzaile**.

---

astiri *iz ipar* ilunabarra.

Aste hortan bizi izan guzia doi bat borobiltzeko asmoz, frantseseko erakasleekin idazlan frango egin ondoan, **astiri** batez beren burasoak eskolara gomitatu dituzte eta haien aintzinean iragan astea aurkeztu dute, diaporama bat lagun. Herria

Horrelako hirur merkatari, elkarrekin aste guzia erabiliak, ostatura biltzen dire larunbat **astiri** batez. Xipri Arbelbide

Otsail **astiri** batez kultur etxeko aretoa mukurru beterik zagon, lehengo ingurutxo famatu hura ikusteko, beste euskal dantza askorekilan. Herria

Goxotasunean eta etxekoz etxeko iragan den besta **astiri** arte. Herria

---

astiro **1** adlag *(ETCn **7.620** agerraldi)* behar adina asti hartuz. ik **geldiro**; **poliki**.

Zuhariak aitzina jarraitu zuen, **astiro**, urrats nagitan. Koldo Izagirre

- Ekarri zigarroa, keak begi eder horiek itxiarazten dizkizu - Bibik ezpainetatik kendu zion zigarroa, **astiro**, suabe... bide batez laztandu nahi balu bezala. Paddy Rekalde

Astiro, hoa **astiro**! Anjel Lertxundi

Txatok besotik heldu zion, Antxon makurtu egin zen **astiro**, harria laga eta Tomasenak hartu zituen. Koldo Izagirre

Astiroago, aita! Anjel Lertxundi

Mugara heldu aurretik, Endarlatsarako bidea hartu eta Beratik Ibardin mendatearen gailurrerantz abiatu ziren, **astiro** baino nekezago. Harkaitz Cano

Pare bat aldiz ezpainak **astiro** igurtzi mingainarekin, eta kopeta ilundu zuen: bazirudien kezka larriak sortu zitzaizkiola bat-batean. Anton Garikano

Okupazioaz geroztik, oso **astiro** ibiltzen da bere makuluarekin, normalean baino askoz ere **astiroago**. Harkaitz Cano

Astiro jaiki, eta atearen laukiaren kontra bermaturiko emakume baten aurpegia ikusi zuen, gauak artean ilundua, negar zotinka. Juan Garzia

Esnatu zenean sonbreirua bularraren gainean zeukan, Juanek hantxe **astiro** pausatu balu bezala. Bernardo Atxaga

Baina ez da harritzekoa ere, alde batera: atzerazale, geldizale edo **astiro** ibilzale horietakoa zinela idatzi zenuen behin batean; neurriz, tamainaz, zuhur (xuhur?), zentzuz, kontuz, tentuz... zen zure eskola, eta delako amets hura egin zuenari ez egiten onik, nonbait, erretolika horiek. Iñaki Segurola

Azal dezagun hau **astiro** : balirudike bertsolariarentzat neurria eta errima bete beharreko baldintza teknikoak direla. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Amaitu zuenean, **astiro**, Einsteinek biolina kutxatilan sartu eta tiraderan gorde zuen berriro. Fernando Morillo

Astiro makurtu zuen burua, ezker-eskuin eragin, harik eta lehengo jarrera tinko berberera itzuli arte. Patxi Zubizarreta

Astiro diotso, begietara so eginez, Edortaren buruari esandakoa prozesatzeko denbora nahikoa utzita. Sonia Gonzalez

- **Astiro**, baina goazak hemendik atoan, Txapli! Unai Iturriaga

Ostatu atzeko bideko lehen errebueltan auto bat agertu da **astiro**. Alberto Barandiaren

Korridore luze ezkoztatuetan gure pauso hotsa entzuten da eta **astiro** goaz, drazz draz draz, zalapartarik ez egiteko. Joseba Sarrionandia

Astiro altxatu zen Matias jesarlekutik. Unai Elorriaga

Uraren hotzak min bizia ematen bazion ere, Fionn **astiro** joan zen, oinak harrien gainean irristatuz, edozein ezustekori erne. Joanes Urkixo

Eta, ea ba, ostiraletarako pentsatua zutela - **astiro** eta gozo esanda- uda aldeko goizetan tokian tokiko eguraldiaren jitea ematen genuenok, ea ba, txandaka-txandaka, ostiral arratsetan besterik ez, astebururako iragarpenarekin ausartuko ote ginen edo. Pello Zabala

-Pentsatu dugu -esan zuen **astiro**, hitzak neurtuz, zehaztasunik eman gabe-, gugandik hurbil bizi zintezkeela. Ander Irizar

Mikrofono aurrean paraturik, **astiro** mugitu zituen eskuak, berari begira zegoen publiko kolore askotarikoak txaloak eten zitzan. Josetxo Azkona

Axenario **astiro** abiatu da mandatua betetzera, platerari ondo zuzen eutsita deus ez isurtzearren. Itziar Otegi

Astiro jagi nintzen, nire buruari horrela egiteko agindu ez banio arinegi joango nintzatekeelako. Edorta Jimenez

Astiro erreparatu izan zien maiz nesken edertasun gazteari. Mirentxu Larrañaga

Urrebotoiak topatzen nituen beti plazan, udaberria zen berriro, eta **astiro** mastekatzen nituen gordeka. Joxan Elosegi

Batzuetan **astiro** errepikatzen ditu hitzak. Lutxo Egia

Kokotsetik behera geratu zitzaion listu-hariaz ohartu eta, beso dardartia **astiro** jasoz, artilezko jertsearen eskumuturreko aldeaz sikatu zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Astiro hurbildu zen Omochi harengana, bere ahalmen hondatzailearen eragina aurrez dastatu nahi izan balu bezala. Joxan Elosegi

Ondoren, paragraforen batean interesa baduzu, **astiroago** irakurri. Askoren artean

Nahi nizkizuke azaldu bi autore hauen iritziak pixka bat **astiroago**. Pello Salaburu

-Horixe dudala -esan zuen jeneralak **astiro** -. Xabier Olarra

Astiroago hausnartzekoa da hori; ea zer egokiera zaigun, zer, noiz eta nola, geure asmorako komeni. Juan Garzia

2 *astiro-astiro*

Medikuak eztiki ohartarazi zuen korrika eta presaka ibiltzeaz, eta otoi erregutu zion **astiro-astiro** oneratu behar zuela. Mirentxu Larrañaga

Jende gehiena bazihoan hondartzatik **astiro-astiro** eta gu ere huraxe egitekotan geunden gure begien aurretik, auskalo nondik aterata, gazte lerden, segail eta eder bat korrika lasaian igaro zenean. Aitor Arana

Astiro-astiro lepoa jiratu eta bi begi gorri ikusi nituen iluntasunean. Jon Maia

Xabik zurrutada bat egin du Armagnac-ez betetako basotik, **astiro-astiro**, Martinek eta biok patxarana edaten dugun bitartean. Xabier Etxabe

Hizkuntza bere bidea egiten ari da **astiro-astiro**. Lutxo Egia

Arropa eranzten du, **astiro-astiro**. Eskarne Mujika

Astiro-astiro mugitu nituen pezak, harrizkoak bailiran, plastikozkoak izan beharrean. Berria - Kultura

Auto karabana hilerrira joan zen, eta **astiro-astiro** jendea handik aldendu zen. Berria - Harian

Astiro-astiro joatea du gustuko, geldikako jokoa da haien dohaina. Berria - Kirola

Une batez, Axenario, bere baitan murgilduta, **astiro-astiro** lasaitzen doazen marruak entzuten egon da. Itziar Otegi

Gero, **astiro-astiro** zabaldu, eta tiraderaren hutsunean finkatu nuen begirada. Aritz Gorrotxategi

Astiro-astiro, diligentziaren mundua beheraka abiatu zen. Bernardo Atxaga

Haurra ez da izutzen **astiro-astiro** agure bat osatzen ari delako. Josu Zabaleta

Astiro-astiro, beste herri batzuen kantetatik ere ikasiz, baladak polituz eta aberastuz joan ziren eta txukunduz eta apainduz. Joxe Azurmendi

Norberak irekitzen baititu **astiro-astiro** iraganeko ateak, oraina zein geroa irentsiko dizkion munstroa sar dadin. Markos Zapiain

Astiro-astiro, hankak lasaitzen hasi zen, eta lepoa tinkatzeari utzi. Patxi Zubizarreta

Eta **astiro-astiro** gauaren baitara egin zuen. Edorta Jimenez

Astiro-astiro hasi zen mugitzen. Fernando Morillo

Astiro-astiro heldu nintzen lehengusinarenera. Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **astiro abiatu** (3); **astiro altxatu** (7); **astiro ari** (4); **astiro astiro** (192); **astiro astiro jiratu** (3); **astiro atera** (3); **astiro egin** (8); **astiro egiten** (8); **astiro eman** (3); **astiro esan** (4); **astiro eta kontu** (3); **astiro eta nekez** (4); **astiro goaz** (3); **astiro hartu** (3); **astiro hasi** (7); **astiro hitz egin** (6); **astiro hitz egiten** (8); **astiro hurbildu** (3); **astiro hurreratu** (3); **astiro ibili** (3); **astiro ibiltzen** (7); **astiro igaro** (3); **astiro igo** (6); **astiro iristen** (3); **astiro itzuli** (7); **astiro jaiki** (6); **astiro jaitsi** (4); **astiro jiratu** (5); **astiro joan** (10); **astiro mugitu** (8); **astiro mugitzen** (6); **astiro sartu** (5); **astiro zihoala** (3); **astiro zihoan** (7); **astiro zutitu** (4); **begiratu zion astiro** (3); **esan zion astiro** (3); **esan zuen astiro** (12); **gero astiro astiro** (4); **gizona astiro** (3); **hain astiro** (5); **hasi da astiro** (4); **joan zen astiro** (3); **lasai eta astiro** (3); **orain astiro** (3); **oso astiro** (32)
>
> **astiroago egiten** (4); **astiroago ibili** (4); **astiroago joan** (4); **astiroago joan behar** (3); **astiroago joateko** (3); **baino astiroago** (7); **ere astiroago** (3); **eta astiroago** (10); **gero eta astiroago** (5)
>
> **ahalik eta astiroen** (3)

---

astiroki *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) adlag* astiro.

Kikara **astiroki** hustu eta kafe hondarraren aparra bildu du koilaratxoaren puntaz. ETC-literatura, saiakera

Abanikoaren mintzaira ezkutua ikasi zuten euren amona andaluziarrengandik, berdin baliagarria senarrari men ez egiteko edota erregeari: zabaltze **astiroki** eta ixte bat-bateko horiek, uhin horiek, hegaldatze horiek. ETC-literatura, saiakera

Astiroki polita. ETC-literatura, saiakera

---

astirotu, astiro(tu), astirotzen du *ad* abiadura astiroagoa, makalagoa bihurtu.

Autoaren martxa **astirotu** nuen, piano baten akorde uhintsuak hobeto hausnartzeko.Berlinak bere martxa **astirotu** zuen. Anjel Lertxundi

Aurkezpenezko lehen orriak begiratzen hasi nintzen, haietariko bakoitzean **astiroturik** arreta, esperientziaz baitakit hasierako orrialdeetan aurkitzen direla maizen xehetasun harrigarrienak: [...]. Anjel Lertxundi

Zaldien trosta **astirotu** zuen Noraren aitak. Anjel Lertxundi

Pequod baleontzian ez zen aspaldi luzean mugimendurik an-tzematen, eta zaldiek beren trosta **astirotuaren** hotsa belaontziaren eta moilaren arteko uraren txapla-txaplarekin egokitu nahi zutela ematen zuen, hain batera entzuten baitziren biak. Anjel Lertxundi

Trafikoa ugaltzen hasi zen aurretik, autoak **astirotzen**, eta autobusak ere abiadura gutxitu egin zuen. Iñaki Zabaleta

Auretan zehar **astirotzean**, kolpea hozten baitzaio eta haren mezua ez baita sentimenera bero heltzen. Xabier Amuriza

Bat-batean, Imanolen aurpegikerea aldatu egiten da eta, berbak astunduaz eta **astirotuaz**, dino: [...]. Xabier Amuriza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
martxa astirotu (3); **trosta astirotu** (3)

---

astitsu *izond* aski geldia, arintasun gutxikoa.

Kristaltze-prozesua **astitsua** zenez, ontzi asko behar ziren, eta, azido klorhidrikoak metal guztiei erasotzen dienez, ontziok beirazkoak edo zeramikazkoak izan behar zuten. Juan Garzia

Osasun-batzordeko ikuskatzailea ere gizon **astitsua** da, eta ziur etxean dagoela bera ere, baldin eta nonbaitera joan ez bada kartetan jokatzera. Jose Morales

Urrats **astitsuak** arrastaka, zerbait astuna garraiatuko balute bezala. Juan Garzia

Berorren aitaren irudi peto bat, zehatz-mehatz armaturik, burutik behatzetaraino, hara non zaien agertzen eta, hotsandiko ibileraz, larderia **astitsuz** hurbiltzen. Juan Garzia

Baserritarraren jitea zuen ibileran, urrats luze **astitsuz**. Juan Garzia

Jatorrizkoarekiko baliokidetasunaz, berriz, epai bezate jakintsu **astitsuek**: ni, irakurleak gogatzearekin konformatzen naiz. Juan Garzia

Big Lannie egunez joan ohi zen dama dirudun eta **astitsuen** etxera, gobada egitera, nola zetazko arropak hala lihozko zapi zuriak ikuztera. Mirentxu Larrañaga

· Pentsa eta pentsa ibili zen, nare, **astitsu**, eta neska artean maite zuela ondorioztatu zuen. Patxi Zubizarreta

Alcira azaldu zen, laranjondoak fruituz beteta zituela, Jucar ibai sakon, emari **astitsuzkoarekin**. Josu Zabaleta

---

astiune *iz* astizko unea.

Antzinako guztien jakinduria aztertu eta bere **astiuneak** profeziak ikertzera ematen dituenarekin. Elizen arteko biblia

Letragizonak **astiuneak** behar ditu jakinduria lortzeko; bestelako zeregin gutxi duena bihurtuko da jakintsu. Gelditzen da oraindik ezertarako balio ez duen puska bat, bihurria eta adabegitsua: hartu eta landu egiten du **astiuneetan**, trebeki forma ematen pasatzen du denbora, giza irudi bat eratu Elizen arteko biblia

---

astiz *adlag* astiro.

Ez nintzen egunak bizkor edo **astiz** iragotzen ari zen bereizteko gai. Joxan Elosegi

Hain da memorio handiko gizona nun ez duen mahain izkinean kantu-liburu beharrik abesti xaharrenak eta berriagoak hastetik buru **astiz** kantatzeko. Herria

---

astiztar *izlag/iz* Astizkoa, Astizi dagokiona; Astizko biztanlea.

Txapelketa berotzeko-edo egin den Bertso Ligan, bost gaztek lehen aldiz parte hartu dute: Xabi Salbador barañaindarrak, Ekaitz Astiz iraizoztarrak, Iker Iriarte **astiztarrak**, Mizel Mateo bidarraitarrak eta Iñaki Aleman iruritarrak. Berria - Kultura

---

asto *(ETCn **7.058** agerraldi)* **1** *iz* zama aberea, zaldiaren antzekoa baina hura baino txikiagoa, belarri-luzea eta larru-latza *(Equus asinus)*.

Pernando eta abadea elkarrekin hizketan, **astoa** dutela tartean. Iñigo Aranbarri

Irribarrez zetorren hura, txalmaren alde batean eserita; makuluak, **astoaren** bizkar gainean; txalmaren beste aldean, urki-enbor handi bat. Inazio Mujika Iraola

Coruñako harri landuzko kaleetan zebilen gurdi eta narria jario etenbako bizi-bizia ikusi besterik ez zegoen; mando eta **astoena**, zaldi eta behorrena bezain bizia. Edorta Jimenez

Asto eta mando haiek, alokatu ostean, saldu egiten zizkietela zirkukoei, piztien bazka bihurtzeko. Paddy Rekalde

Ttette zakurra artaldea zaintzen zebilen eta **astoa** hantxe, alhan. Itxaro Borda

-Beldur naiz ez ote zaizun zuri ere gertatuko **astoari** eta idiari nekazariarekin gertatu zitzaiena -amaitu zuen bisirrak, eta alabaren jakin-goseaz oharturik, istorio hura kontatu zion. Patxi Zubizarreta

Astoa ikusten dut, banastak aldean. Iñigo Aranbarri

Etxeko ezkaratzean izarren azpian **asto** bat zegoen; bastak jarrita, pufaka ari zen. Pablo Sastre

Don Martin ikaragarria zen; inori ez zion barkatzen; auzoko astazain bati, korritu batzuk ordaintzen ez zizkiolako, esnetarako astemeak bahitu zizkion, eta astazainak esanagatik **astoak** uzten ez baldin bazizkion zailagoa izango zela ordaintzea, don Martinek ez zuen onartu. Josu Zabaleta

Gure etxetik gora **astoaren** gainean zihoala, sorginak sentitu omen zituen. Bernardo Atxaga

Santxok maite zuen bere **astoa**, zaindu egiten zuen, eta, nik uste, hori bera egingo zuen beste animaliekin ere. Patxi Ezkiaga

Bukaeran alaba gehiago, **asto** gehiago, gamelu gehiago izateko? Koro Navarro

Mandoa, aterpe aitzineko arbola bati estekaturik, eman dioten belar mokorra jaten ari da, eta pentze idorrean atzemanaz satifatzen ari den **astoari** fereka ari naiz. Piarres Aintziart

Ohea sare zahar bat zen, bi **astoren** gainean, eta arta hostoz betetako lastaira batez estalia. Josu Zabaleta

Izugarria da **asto**-mando-zaldien suma. Gotzon Garate

Muino baten gorenetik **asto** bat honi guztiari beha. Koldo Izagirre

Apostoluek beren soinekoz estali zuten **astoa**, eta haren gainean eseri zen Jauna. Patxi Altuna

Auzoan **asto** bat zeukan andre bati astoa kendu eta haragitarako erabiliko genuen. Javi Cillero

Jendeak jakinaren gainean dira eta horra non, bero handienean, beren kamelu, dromadario, zaldi eta **astoekin** heltzen diren eta urrez kargatzen dituzten. Aurelia Arkotxa

Astoan zekartzanak orbeletara jaurti zituen, eta animalia bazkatzera bidali zuen gorago zebiltzan ahuntzen artera. Koldo Izagirre

Dolcino eta Margheritari dagokienez, **asto** baten gainean lotu zituzten, haren atzealdera begira aurpegia, eta Novarako plaza nagusira eraman. Juan Garzia

Asto gainean soinuaren kutxa. Koldo Izagirre

Elurra oparo ezarri zuen batean, **astoz** joan izan zitzaizkion bila Elosuko gazteak, elurrak elur, auzoan dantza lotua falta ez zedin. Iñigo Aranbarri

Zaldi batzuen irrintziek erantzun zioten **astoari**; ostikoka hasi ziren urrunean, eta iskanbila areagotu zen, durunditu zen, eta isildu azkenean pixkanaka. Karlos Zabala

Asto edo mando gainean hurbildu zenik ere bai. Xabier Etxabe

Egiptorako ihesa margolanean, **astoaren** atzetik doazen bi pertsonaien mugimenduak ahotan darabilten elkarrizketa ikaratia iradoki nahi du - "Hi, entzun duk hots hori? Anjel Lertxundi

Hura bezala, orobat, ubidez zeharkatua zegoen: ez zen biztanlerik, (aberatsen klasekorik, jakina) zalditegian **asto** bat eta ibaian ontzi bat ez zeukanik. Jon Muñoz

Han ziren heldu **asto** banatan aktoreak... Juan Garzia

Maldan behera gindoazen oinez, **astoen** trosta punpakatua entzunez. Juan Garzia

2 *iz* zerbaiti azpitik eusteko egitura, eskuarki zurezkoa.

Kubo baten forma du eta egurrezko **asto** tolesgarri baten gainean jartzen da. Pablo Sastre

Berehalakoan handik ospa egiteko eta zurezko **astoak** aldean eramateko agindu zien Nozdriovek bi mujikei; gero, aldameneko gelara joan zen beste agindu batzuk ematera. Jose Morales

Astoez egindako mahai gainean pilatuta zeuden egunkaria, liburuak, jertseak eta forma lausoko trasteak. Unai Iturriaga

3 irud/hed

Halakoxe **astoa** baita nire laguna, eta zer, aizu, eta hartu eta ospa!, bakar-bakarrik utzi ninduen zerri... Antton Olano

-Asto galanta haiz, barren! Eskarne Mujika

-Asto alaena! -Sansik airean du oraino zangoa-. Aingeru Epaltza

-Aska nazazu, **astoa** halakoa. Monika Etxebarria

Tentela behar du izan gizonak, buruz motza, txepela, **astoa** behar du izan, uste izateko milaka milioi unibertso horiek gizona, zomorro burugabe hori [...] Josu Zabaleta

-Ez hadi **astoa** izan. Iñaki Iñurrieta

Eta Malanda hura **astoetan astoena** izango zen seguruenik, burugogorra esan nahi dut, eta ezin baziren umeak hilerrian egon, Malanda bat bera ere ez zela hilerrian egongo. Unai Elorriaga

Eta galdetzen badidate, horrelako gizona gizontzat baino ziurrago ez ote den **astotzat** hartu behar, aitortuko dut ez dakidala. Piarres Xarriton

-Ze **astoak** zareten! -moztu zuen Anduk-. Jon Arretxe

-Ba, hara, beren gisa erabaki dutela, hizketan oso **astoak** direlako eta jota abesten dutelako, berak direla pertsona egiati bakarrak, leial bakarrak. Koro Navarro

-Asto galanta haiz, barren! Eskarne Mujika

Asto jaiotzen dena **asto** hiltzen da, kondena dezala Jainkoak eta eraman dezala deabruak. Karlos Zabala

4 (izenondo gisa)

Nor ote ekintza **asto** horren buruzagia? Txillardegi

Baina haren iduriko, munduko gidari **astoena** nintzen, bere autoa zanpantu nuelakotz. Ramuntxo Etxeberri

5 (izenondoekin)

Asto handi halakoa! Erraten zen emazteak kanpo ezarri zuela, arras inutila omen zelakoan. Itxaro Borda

Asto ttiki batekin, berdura eta arrautza batzuk hartuta. Patxi Zubizarreta

Asto herren baten begiak zituen eta ilea beltza. Unai Elorriaga

-Asto ustelen hondakinekin, behintzat, ez. Jon Arretxe

Bilatu beharko diagu honentzako **asto** egokia! Juan Luis Zabala

Eguna holtzak botatzen, eskonbroak ateratzen eta aldamioetara igotzen pasatu ondoren, **asto** egurtuaren gisan sartzen nintzen ohean lotara. Fernando Rey

Gelaren beste aldean, hiru hankadun aulki bat eta oihalari eusteko **asto** zaharkitua zeuden; astoaren atzean, berriz, Rodolfok bere bizitzan zehar margotutako oihal gehienak, bata bestearen gainean pilaturik. Aritz Gorrotxategi

Karrerakoa nahi baitzuen berak, baina bizikletak **asto** zaharraren hezurdura ematen zuen azkenean, hala iruditu zitzaion behintzat Goiori eskuak belarrietan ipini eta portu aldera abiatu zenean. Joseba Sarrionandia

Ia egun hartan osabak, pentsakor eta ia ameslari hitz egiten zuela, aurpegiera serio, garatxodun eta zorrotzarekin kontrastean, burua munduari erronka egiteko moduan tente, belarri luze eroriek aldi berean **asto** harrituaren itxura ematen zioten arren. Bego Montorio

Supituki, bihurgune baten ondoren, Medinako kalexkak, etxeak eta jendeak azaldu ziren: kalexkak estuak ziren, bi **asto** saskidun ozta-ozta gurutzatzeko modukoak; etxeak, nahiko altuak eta ia leihorik gabeak; jendeak, beste garai batekoak. Bernardo Atxaga

Iluntzean, morroiak **asto** nekatu eta jipoitua kortara eraman zuenean, idia altxatu, eta biziki eskertu zizkion aholkuak. Patxi Zubizarreta

Bere ohore guztiekin ere gizakiak ez du irauten, ezaguera gabeko bihurtzen da eta **asto** ezjakinen pareko. Imanol Unzurrunzaga

Asto galanta zen baina ezin gehiagoko trebezia zuen gauza zail horien bururatzeko, haien esangura-helbururik batere ulertzen ez zuela. Matías Múgica

Asto itzela zeukanat gaur kortan eta badakin hiretzat beti dela doan -berbak izugarri luzatzen ditu, denbora erreala eta bere barnekoa erritmo ezberdinetan balihoaz bezala. Sonia Gonzalez

Baserritarrak egundo baino gehiago ikusten ziren kalean euren **asto** grisekin. Joseba Sarrionandia

Opari egiozu **asto** kalparzu bat, emaiozu oilar bortsatzaile bat edo urritz makil dotore bat, eta hari bost orduan, Pirinioetako azken hartz basatiarenak - esate baterako - bihar bertan egiten duen. Patziku Perurena

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egunean hamabi ordutik gora egingo eban beharrean, gurdiak, **asto** karroak eta halango erremintak egiten. Xabier Amuriza

Baina **asto** itxura eduki nahi ez dudanez, begiratu bat bota beharko lioke zirriborroari Barchinik agiria inprimatu aurretik. Koldo Biguri

Poltsikoen forruei tira egin eta **asto** -belarriak balira bezala zintzilika jarri ditu. Itziar Otegi

Txomin sesiturik gelditzen da, "zer **asto** mota da hau egiten duela bere buruarekin. Eneko Bidegain

Arnasa pixka bat estuturik, bere **asto** -matrail handia zuzentzen du nigana. Monika Etxebarria

7 ***asto arrak umea egin orduko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Asto arrak umea egin orduko. ETC-entziklopedia

8 ***asto-azienda*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Behi- eta **asto-azienda** askoz ere murritzagoa da. Arabiako zaldiak desagertzear daude, ehiztariek ia erabat kalitu dituzten basamortuko basabereak bezala. ETC-entziklopedia

9 ***asto beltzarenak***

Potzoloren boza ezagutzeak are gehiago indartu ninduen: bereak eta **asto beltzarenak** erranen nizkion kabroi horri. Aingeru Epaltza

Zertarako, eta beste aldera pasatu eta, faxisten artean bere burua lasai ikusita, gure kontra **asto beltzarenak** esango zituen obispo bati ihesbidea errazteko. Inazio Mujika Iraola

Emazteak bereak eta **asto beltzarenak** erranda, damuturik agertu behar izan nin-tzaion, biharamunean, alabari. Aingeru Epaltza

Hots, artean ez zen diktadorea, baina ziur nago kable batetik zintzilik egon zen bitartean **asto beltzarenak** esango zituela makina muntatu zutenen gainean. Berria - Kultura

Txakurrarenak eta **asto beltzarenak** esan zituen xekeaz eta zutaz, sekulako irainak. Fernando Rey

"Norbaiti zakurrarenak esan", hots, erasia gorria egin, bereak eta **asto beltzarenak** esan. Gotzon Garate

- Hemen bekaizki jostatzen baldin bagara, gureak eta **asto beltzarenak** egina duke. Itxaro Borda

Bereak eta **asto beltzarenak** esaten hasi zen: "Harrapatuta neukan, eta hanka egiten utzi diot!". Jon Muñoz

Zernahi libertimenduek arinduko dute plaza ta Zanpantzarrek jasanen ditu bereak eta **asto beltzarenak**. Herria

10 ***asto lan***

Era horretan baloi mordoa galtzen du Realak, eta gero **asto lanak** atzekoentzat izaten dira. Berria - Kirola

Asto-lana, beraz, Ruche jaunak egin behar izan zuen. Jon Muñoz

1888an Mutrikuko Olatzen jaiotako attitte gureak, bere ama **asto-lanean** ikusten asperturik, astoa erosi omen zuen etxerako, eta hura izan omen zen etxe hartan sartu zen aurrenekoa. Iñaki Segurola

Asto-lana franko egin zuten gure gurasoek. Arantxa Iturbe

"**Asto-lana**, anaia." Bere ordenagailurantz makurtu naiz zer testurekin ari ote zen ikusteko, baina eskuak zabaldu ditu pantailaren aurrean eta galarazi egin dit. Bernardo

Atxaga

11 *asto-laster* *(ETCn 57 agerraldi)* Zuberoako herri antzerki satirikoa.

Meza nausia eta guziak, eta **asto lasterrak** sariekin Lazkaolo plazan. Herria

12 *asto lasterketa*

Egia erran, urtero, inauterietan zaldi, idi, behor eta **asto lasterketa** ederra egiten da Hiri nagusian sari bereziak eskainiz lehen heltzen denari, nahiz ikusliarren eta lekukoen artean gertatzen den batzuetan delako makur zerbait izatea. Piarres Xarriton

13 *asto-mahai*

Donkin enparantzan, saltokien jabeak badabiltza dagoeneko **asto-mahaiak** jartzen eta salgaiak mahaien gainean zabaltzen. Oskar Arana

Sprout andereñoa **asto-mahai** baten atzean zegoen berotegiaren erdian. Iñaki Mendiguren

Hilkutxa **asto-mahai** baten gainean jarrita dago, barruan du aitaren zerraldoa, igande-jantzian. Mirentxu Larrañaga

14 *asto proba*

Ohi bezala, Otsolo Memoriala izango du aurten ere Euskal Herriko **Asto Proba** Txapelketak izena, eta Etxebarriko (Bizkaia) probalekuan jokatuko da hiru egunez. Berria - Kirola

Ahantzi gabe idi-proba eta **asto-probak**. Herria

15 *asto tolesgarri*

Kubo baten forma du eta egurrezko **asto tolesgarri** baten gainean jartzen da. Pablo Sastre

16 *astoa saldu eta mandoa erosi* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Astoa saldu eta mandoa erosi pentsatu zuen ironikoki. ETC-literatura, saiakera

17 *astoaren arrantza*

Ahuntzaren umea ez bazen, oiloaren txixa izango zen, edo **astoaren arrantza** bestela. Xabier Etxabe

-Esdrasen **astoaren arrantzak** ! -oihukatu zuen . Patxi Zubizarreta

18 *Atlaseko basa-asto* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Atlaseko basa astoa, edo Algeriako basa astoa, "Equus asinus atlanticus" da bere izen zientifikoa, egun galdutako Afrikako basa astoaren azpiespezie bat izan zen. ETC-entziklopedia

19 *bereak eta asto beltzarenak* *(orobat **beltxarenak**)* berealdikoak.

Plazerik handiena senarrari **bereak eta asto beltxarenak** ematen zizkionean hartzen zuen Gizagaixoa emazteari **bereak eta asto beltxarenak** ematen ez dizkiona. Patxi Zubizarreta

Nozdriov zen nor hura, eta esan gabe doa **bereak eta asto beltzarenak** hartu zituela, hala nola hartzen baititu soilik sindiku alproja batek edo kotxezain batek kapitan zaildu eta asko bidaiatu batengandik. Jose Morales

Mihia ez zitzaion kikilduko **bereak eta asto beltxarenak** esateko orduan. Patxi Zubizarreta

-Jakina, **bereak eta asto beltzarenak** erran zizkionat alproja horri. Aingeru Epaltza

Emazteak **bereak eta asto beltzarenak** erranda, damuturik agertu behar izan nin-tzaion, biharamunean, alabari. Aingeru Epaltza

"Norbaiti zakurrarenak esan", hots, erasia gorria egin, **bereak eta asto beltzarenak** esan. Gotzon Garate

Orduan nitaz horren itsuski trufatua zen Luixa zirtzilak adituko zituela **bereak eta asto beltxarenak** ...! Janbattitt Dirassar

Baina beti ere, bere burua jauntto boteretsu batentzat zeukan hark Joanesi **bereak eta asto beltxarenak** entzunarazi zizkion. Eneko Bidegain

20 *Enkarterriko asto*

Izan ere, **Enkarterriko astoa** desagertzeko zorian dago eta asto mota haren lagunek plataforma bikaina izan dute Naumon itsasontzian beren kezka eta asmoak plazaratzeko, hainbat proiektutako GKE batzuekin batera. Berria - Kultura

21 *euskal asto* *(corpusean ez dago; ETCn 11 agerraldi)*

Nire ustez, **euskal astoa** ez dago desagertzeko arriskuan. ETC-prentsa

Ondoren, Giasel sortutako garaian, **euskal astoarekin** erakusketa formalagoa egiten hasi ginen. ETC-prentsa

Hala jakin zuen **euskal asto** beltza animalia txiki eta indartsua dela, eta meatzeetan erabili izan zela harriak gainean kargatzeko. ETC-prentsa

22 *mandotik astora erori* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Baizik eta moda zaharrekoa dela, gaurkoak izateko ametsarekin Ebanjelioa baztertzen duten horietan zenbat ez dira **mandotik astora erori**? ETC-literatura, saiakera

23 *mandotik astora jausi* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Baduzu maila bat oraino, **mandotik astora jausteko**. ETC-literatura, saiakera

24 *Mongoliako basa-asto* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Mongoliako basa-astoa edo "khulan", "Equus hemonionu hemionus", Mongolian eta Txinako iparraldean hedaturik dagoen onagroaren azpiespezie baten izena da. ETC-entziklopedia

25 *piriniar asto* *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)*

Ipar Euskal Herrian **Piriniar astoa** delako arraza hedatua zegoen, Enkarterriko astoa motatik oso gertukoa. Galzorian dago egun. ETC-entziklopedia

26 *pirinioetako asto* *(corpusean ez dago; ETCn 8 agerraldi)*

Pirinioetako astoa Euskal Herriko, Okzitaniako zein Kataluniako bertako asto arraza bat da. ETC-entziklopedia

14: 00etan, **Pirinioetako astoak** aurkeztuko dituzte. ETC-prentsa

27 *Somaliako basa-asto* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Somaliako basa astoa, equus africanus somaliensis da bere izen zientifikoa, Somaliako, Eritreako eta Etiopiako basa astoaren mota bat da, Afrikako basa astoaren lau azpiespezietako bat. ETC-entziklopedia

28 *zalditik astora*

Urtea barne 750 lagun ekonomikoki **zalditik astora** jautsirik pasatu dira kategoria horretara. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

aitari hamar asto (2); **anaia asto baten** (2); **ardi eta asto** (2); **asto bat** (34); **asto bat ere** (3); **asto bat sartu** (2); **asto bat zegoen** (2); **asto batean** (2); **asto batek** (8); **asto batekin** (2); **asto baten** (24); **asto baten gainean** (8); **asto baten ginera** (2); **asto baten matrailezurra** (2); **asto baten matrailezurraz** (2); **asto baten moduan** (2); **asto bati arre** (2); **asto batzuk** (3); **asto belarriak** (3); **asto beltxarenak** (11); **asto beltxarenak ematen** (2); **asto beltxarenak esan** (3); **asto beltxarenak esateko** (2); **asto beltzarenak** (13); **asto beltzarenak esan** (3); **asto beltzarenak esango** (2); **asto edo mando** (2); **asto eta ardiak** (2); **asto eta guzti** (2); **asto eta mando** (3); **asto eta zaldi** (2); **asto gainean** (45); **asto gainean ezarri** (2); **asto gainean ibili** (2); **asto gainean jarri** (2); **asto gainean joatea** (2); **asto gainean kargatu** (2); **asto gainean zeramatela** (2); **asto gainera** (7); **asto gainera igoaraziz** (2); **asto gainetik** (22); **asto gainetik jaisten** (2); **asto gainetik jaitsi** (11); **asto gaizto** (2); **asto galanta** (3); **asto handi** (2); **asto handia** (3); **asto hil** (2); **asto hilari** (2); **asto hori** (4); **asto horren** (3); **asto hura** (3); **asto karroak** (2); **asto lana** (4); **asto lanean** (3); **asto mahai** (2); **asto mahai baten** (2); **asto mando** (2); **asto masto** (3); **asto masto saria** (2); **asto matrailezurraz** (2); **asto mota** (2); **asto nahiz ardi** (2); **asto nahiz ardietatik** (2); **asto proba** (2); **asto probak** (3); **asto samarra** (2); **asto talde** (2); **asto ttipi** (2); **asto txiki** (3); **asto txiki bat** (2); **asto zahar** (4); **asto zaharrari** (2); **azkar asto** (2); **bere asto gainean** (4); **bereak eta asto** (18); **beti asto** (3); **egurrezko asto** (2); **enborra asto** (2); **euren asto** (2); **euskal herriko asto** (2); **gizona asto gainetik** (4); **hamar asto bidali** (2); **herriko asto** (2); **herriko asto proba** (2); **hori asto gainean** (4); **mila asto** (2); **neska asto gainetik** (2); **ni asto gainean** (3); **orain asto** (2); **oso asto** (2); **zenbaitetan asto** (2); **zurezko asto baten** (2)

a zer astoa (2); **anaia astoa** (3); **apuleioren urrezko astoa** (4); **astoa arrantzalea duk** (2); **astoa baino** (6); **astoa behar** (2); **astoa bezain** (2); **astoa bezala** (4); **astoa da** (4); **astoa deitu** (2); **astoa deitzen** (3); **astoa eta idia** (3); **astoa eta lehoia** (2); **astoa gidatzen** (2); **astoa halakoa** (8); **astoa hil** (2); **astoa idatzi** (2); **astoa ikusi** (3); **astoa izan** (3); **astoa kargaturik** (2); **astoa kendu** (2); **astoa langa** (2); **astoa txalmatu** (3); **astoa zegoen** (2); **atzetik oinez astoa** (2); **bere astoa** (10); **bere astoa kargaturik** (2); **etxabeko astoa** (2); **etxabera astoa** (2); **etxeko astoa** (2); **frantziskoren astoa arrantzalea** (2); **hadi astoa izan** (2); **idia eta astoa** (5); **idia nahiz astoa** (3); **nork bere astoa** (3); **oinez astoa gidatzen** (2); **onik dago astoa** (2); **txalmatu iezadazue astoa** (2); **txalmatu zuen astoa** (3); **urrezko astoa** (6); **zer astoa** (4); **zer astoa den** (2)

baino astoagoa (2)

astoak arrantza (2); **astoak baino** (2); **astoak bezala** (4); **astoak ere arrantzan** (2); **astoak eta mandoak** (2); **astoak halakoak** (2); **astoak jan zuela** (2); **astoak saldu** (2); **astoak zaldi** (2); **astoak zarete** (2); **behi eta astoak** (2); **don frantziskoren astoak** (2); **gamelu eta astoak** (3); **gameluak eta astoak** (2); **orain astoak** (2); **zaldiak eta astoak** (2)

bere astoan (2)

bere astoarekin (5); **hemen astoarekin** (2)

astoaren antza (2); **astoaren artean** (3); **astoaren atzetik** (3); **astoaren belarriak** (3); **astoaren eta idiaren** (2); **astoaren gainean** (11); **astoaren goizeko arrantza** (2); **astoaren txalma** (2); **astoaren uztarra** (2); **ez da astoaren** (2); **idiaren eta astoaren** (3)

eta astoarenak (2)

astoari arre (4); **astoari egiten dio** (2); **astoari pentsua emateko** (2); **bakoitzak bere astoari** (2); **bere astoari arre** (3)

belarra astoei (2); **idi eta astoei** (2)

astoen apatx hotsak (2)

---

astoarrosa *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)* *iz* basoan berez hazten den arrosaren familiako zuhaixka *(Rosa canina).*

Izen zientifikoa arantzen itxuragatik eman zitzaion, zakurren (kanidoen) letaginen antza duelako. Euskaraz, "larrarrosa" eta "**astoarrosa**" ere deritzo. ETC-entziklopedia

Entzun ahal izan nuenaren arabera, honako hau zen haien arteko liskarraren gaia: alegia, ea goroldio-arrosa zuria, ongi hazteko, **astoarrosan** txertatu beharra zegoen ala ez. ETC-literatura, saiakera

Sierrako azken **astoarrosak** paratuak zituzten kapela tontorrean. ETC-literatura, saiakera

Zenbatenaz xaloago eta baserritarrago emango zuten, elorri zurion aldean, aste batzuk barru hantxe bertan, eguzki-galdatan, landa-bidezidor berberean gora igoko ziren **astoarrosek**, bertan behera desegiteko putz bat aski duten beren gerruntze gorrikararen zeta jostura gabean! ETC-literatura, saiakera

Han non iluntzean baizik ez baitzen sartzen, zori onaren hiru zedroetatik urrun, **astoarrosez** eta atxaparrez osatutako nahas-mahas sarri hartan, non akaziek, azala zimur, udaberrian loratzeko desira unatu bati eusten zioten oraindik ere. ETC-literatura, saiakera

Zer gertatzen da? Propio **astoarrosak** erein, arrosondo xarmantak erakutsi nahian gero? Lotsagarria izan beharko lukeena ereintza bera da, ez horrelako **astoarrosen** loraldia. ETC-prentsa

---

astodun *izond* astoa duena.

Orduan ez zen bereizteko gauza Azkaineko bidean heldu zena zalduna ala **astoduna** zen. Aingeru Epaltza

Iturrigorri deritzoten iturrian laga zuen zamaria, **astodunek** egin ohi zuten legez. Koldo Izagirre

Astodun gurdi hartxintxarrez betea falta zen bakarrik uharkaren ondoan. Joxe Austin Arrieta

---

astogain *iz* astoaren gainaldea.

-1681ean, Sardinian, San Isidro egunez, elur eta haize zirimola izugarria, zeinetan **astogainean** zihoan gaztea, asto eta guzti jaso lurretik eta bota, jaustean biak bertan seko gelditu zirelarik. Pello Zabala

Lagunik potoloena jarriko zen bizkar emanda arbolaren kontra, bi eskutxokoak lotu zilborrondoan, hatzak elkarri sardean gurutzatuz, eta lagunetan arinenak edo trebeenak han ipiniko zion aurrenako hanka, **astogainera** igotzeko bezala, eta beste hanka bizkar gainean paratuz, han dabil katazka behetineko adaburuan. Patziku Perurena

---

astokeria ik **astakeria**.

---

astokilo ik **astakilo**.

---

astoko *iz asto*-ren txikigarria.

Astokoak arrak ala emeak ote ziren ez du idazleak esaten, baina emeak ziren noski, hala ohi baitira baserriko nesken abereak; alde handirik ez du noski gauzak, eta hori garbitzen ezin geldituko gara. Patxi Ezkiaga

Hantxe zegoen, bai, Pedro Huizi, koadro bat pintatzen, ohol tipi errektangular haren gainean, zeina baitzuen **astokoan** ipinia, eta bere zorro harekin, nondik atera baitzituen pintatzeko behar zituen tresnak. Joan Mari Irigoien

---

astolan *iz* astoari dagokion lana.

Migelek gorriak eta beltzak ikusi zituen, eta *Batallón de Trabajadoresen* ibili zen, **astolanak** egiten, baina bizirik irten zen. Patxi Zubizarreta

-Sinbad hori lasaitasunean eta aberastasunean bizi den bitartean, ni **astolanak** egiten ibiltzen naiz nire familia kostata aurrera ateratzeko. Patxi Zubizarreta

Hurrengorako adi, beraz, antolakuntza okerrak **"astolana"** ekartzen baitu. Askoren artean

---

astoño *iz askor* asto txikia.

Astoño urdin bat duzue beha, egurrez zamaturik. Xabier Montoia

---

astopito *iz/izond* irain hitza.

Astopito bat zara!", pentsatu zuen Joe informatzaileak komuneko leihoa irekiz. Ramuntxo Etxeberri

-Egiok trago eta ahantz **astopito** horretaz -eskaini zion Ttipik botila. Aingeru Epaltza

Minor-i buruz entzun zuen apurretik Tomi iruditu zitzaion halakoxe gizona ematen zuela hark: tirano fanatiko horietako bat, besteei arauak eta legeak ezarri zalea **astopito** santujale bat. Oskar Arana

Ez nuenez, kontentatu nintzen pentsatzera **astopito** ezjakin haiek ez zirela inoiz gozatuko Amadisen abenturez. Aingeru Epaltza

-Astopitoak ez besteak! Elena Touyarou

Otso odolzale madarikatuak! -oihukatu zuen Dominiquek gelan sartzearekin, borta hetsiz.-Edu, **astopito** zikina! Elena Touyarou

"Eskalatzen ari zaretela istripua gertatuz gero, aise atxikiko zaitu zu eta zu bezainbateko hiru", saltzaile **astopitoak**, Pantxoren sabelari begira. Aingeru Epaltza

· Zakila esaten digu, pertsona zakila edo astazakila, astapotroa, **astopitoa**, kirtena, eta kirtenkeria, pitokeria eta abar. Iñaki Segurola

astoputz *iz/izond* irain hitza.

'Estúpido!' esan zidan, **astoputza** baino harroago. Joseba Sarrionandia

Autobus batean (ez da nahastu behar **astoputz** batekin) ikusi nuen (eta ez hik kusin huen) pertsonaia bat (ez ia-pertsona bat) buruan kapelu bat zuena (eta ez peka alu bat buruan), lokarri txirikordatuarekikoa (ez harri-loka likits brodatua kokoriko). Xabier Olarra

-Zer uste zuen ba alkatearen kontakatilu makilgoxoak: **astoputzak** garela! Felipe Juaristi

Zein diren aldaketak? Komisaria aldatu da; joan da Faroux **astoputza** eta haren lagunzailea, mendia baino astoagoa. Herria

---

astorki *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi) iz* belar landare lekaduna *(Onobrychis viciifolia).*

"Zer moduz dago **astorkia** ?". Eta erantzuten diote kapela erantzita: "Berorren esanetara, jauna". ETC-literatura, saiakera

[...] eta noiz sorotxaz, basa-xarbotez, lorez, eta ere lehenago han ereinik izanak zatezkeen **astorkiz** eta hirustaz estalia zen munho ondartsu baten bizkarrean jarriz, hor bakean jeusen beldurrik eta jeusi kalterik egin gabe haz zaitezkeen lapinen egoitzetako biziki ontsa egina baitzen. ETC-literatura, saiakera

[...] ostertzaren ertzean, gari urrunenak eratzaten, lautada mugagabean barrena uhin baten gisa hedatzen eta, marmarti eta epel, **astorki** eta hirusten artean, nire oinetan etzateraino etortzen, orduan, biontzat berbera zen lautada hark elkarganatzen [...] ETC-literatura, saiakera

Nekazaritzako hazkundea lurra modu intentsiboagoan erabiltzean oinarritu zen, labore-errotazio sistemak ezarriz edota larreak hirusta, **astorkia** , koltza eta alpapa ereinda zelai artifizial bihurtuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

astotu, asto(tu), astotzen da/du *ad* astoaren (irudizko adieran) tasunak hartu.

Irakasleek gazteria ikasizalea metodikoki **astotzeko** baizik ez dute balio. Josu Zabaleta

Baina Nietzsche-ren kritikak ulertzeko moralari eta kristautasunari, haren bizitzaren kontzeptuari behar zaio jaramon egin aurretik; bizitzaren zentzu jentil, dionisiakoari alegia, natur olde eta jaiera suhar edonoiz libreekin, instintoen berenezko jaialdi argitsuari biziartean, gezurrezko moral baten aginduen zamapean gizakia **astotu** eta makurtu gabe. Joxe Azurmendi

---

astotxo *iz adkor* asto txikia.

Goizero, bere **astotxoa** hartu, barazkiz eta esnez zamatu, eta nonbaitetik Baionara etortzen zela erreparatu nuen. Txillardegi

Asto bat alokatu dut, bere gidariarekin, eta hau egi-egia da, **astotxo** ttikiak dira (ez, ordea, katu adinako ttiki, kontinentean esaten zenez), baina sendo eta jasangogor. Juan Garzia

Kondairak dioenez, Sendi Saindua Egiptora ihesi zihoala - **astotxo** batekin-, gurutzatu beharreko basamortuan ez zuten landare bakar baten babesik eta itzalik izan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Behin, negu garaian, santua bidaian zen eta, gorputza ahul zuelako eta bideak latzak zirelako, gizon pobre baten **astotxo** gainean zihoan. Askoren artean

Hainbeste maite baitzuen Frantziskok arimen salbamena eta hain egarri baitzen lagun hurkoaren onaz, oinez ibiltzeko gauza ez zenean, **astotxo** baten gainean ibiltzen zen lurraldean zehar. Askoren artean

Behin, **astotxo** baten gainean zihoan, gaixo baitzegoen, eta Borgo San Sepolcro herrixka aski jendetsua igarotzen ari zen. Askoren artean

Itsasoaz bestaldetik itzuli zen garaian, Asisko Leonardo anaiarekin zihoala, nekeaz leher eginda, **astotxo** baten gainera igo behar izan zuen. Iñaki Mendiguren

Mahastian lotzen du bere **astotxoa** , mahatsondoan bere astakumea; ardotan garbitzen du soinekoa, mahats-zukuan soingainekoa. Elizen arteko biblia

Gero Aingeruen Santa Mariara abiatu zen anai Leonekin eta gainean joateko **astotxoa** utzi zion gizon on batekin. Askoren artean

Emakumeak ziren, batez ere, bainuetxean **astotxoak** alogeran hartzen zizkietenak inguruetako baserritarrei, mendialdiak egiteko ermitetara eta iturburuetara. Koldo Izagirre

Eta aurrera jarraitu zuten, eta nekazaria beraiekin, bere **astotxoaren** atzetik. Askoren artean

-Santxo -esan zuen Don Kijotek- hiru **astotxoren** gainean hiru neska nekazari besterik ez diat nik inor eta ezer ikusten. Patxi Ezkiaga

Beti izan da astoa maitagarria eta mantso portatu dena: etxeko txikienek ere maite zuten **astotxoa** . Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **astotxo baten gainean** (5)

---

astotzar *iz adkor* asto handia.

Astotzar galanta izan zaitezke. Fernando Morillo

---

astozahar *(corpusean **astozar** soilik) izond/iz adkor* jakinduria txikikoa.

Ni, **astozar** hau, berandu hasi naiz ikasten. Patziku Perurena

---

astragalo *iz* oineko tartsoan dagoen hezur txikia; arkitekturan, zutabe bateko eraztuna. ik**tortolos**.

Parte horietako hiru hartuz, lehenengo faxa egingo da bere **astragaloarekin** ; bigarrenak lau parte hartuko ditu, eta hirugarrenak bost parte; faxa horiek beren **astragaloekin** zirkulu bat osatuko dute markoaren inguruan. Santiago Iruretagoiena

Leizeen gainean botanika bitxi eta abantzu ezezagun bat hazi da, Baionako **astragaloa** , krabelin frantsesa, itsasoko lihoa, pinpinela hostoko arrosa, ezkai hostoko huntza. Koldo Izagirre

Astragaloaren azpian osteofitosis goiztiar bat dut... Joan Mari Irigoien

Kapitelik eta **astragalorik** ikustatu nuen, frontoi hiru-ertzik eta bobedarik, granitoaren eta marmolaren handioskeria lausorik. Juan Garzia

---

astrakan *iz* Turkestango arkume jaiogabearen azala, oso fina eta ile-kizkurra dena.

Shevirev doktoreak hitz eman zion han ez zegoela inor, baina berak bere begiekin ikusi zuen, hantxe, kantoiaren atzean, albo batera okerturik zeraman **astrakanezko** txano txiki batekin eta begi erne beldurgarriekin. Jose Morales

Haien gainean hamabi kosakoak, biboteak erakutsiz, galako uniformea jantzirik: **astrakanezko** kapela, artilezko beroki zuria, larruzko galtzak eta larruzko bota altuak. Felipe Juaristi

Aita beti gaixorik, **astrakan** -larruzko jaka luzea soinean eta puntuzko txapinak oin biluzietan, hara-hona gelan barrena, denbora guztian zinkurinka eta bazter batean zegoen listuontzi batera tuka. Jose Morales

Soingaineko berde luze bat zuen soinean, **astrakan** -itxurako eskumutur eta lepo-anokiz, eta larruzko kapela obal bat buruan. buruan **astrakanez** forratutako txanoa, eta

soinean jantzi luze iluna, izur zabalez apaindua, eta erabiliaren erabiliaz aski higatua. Irene Aldasoro

---

astral 1 *iz* astroei dagokiena.

Karta **astrala** nahi izanez gero, gutienez ere bi saio beharko ditugu. Aingeru Epaltza

Horoskopoa eta karta **astrala** ditut alde. Joan Mari Irigoien

Handik goiti, aurpegi mudagaitz berberarekin hartuko nituen elkarren segidan etorri ziren guztiak: kirologia, radiestesia, alkimia, bidaia **astralak**, filosofia tibetarra eta, hutsik egin gabe, horiei denei zegozkien "Taldeak". Aingeru Epaltza

Ezlekuan eta ezdenboran gertatzen den trantsizio aldi bat, bi munduen arteko jauzi horretara egokitzeko, astronautak beren bidaldi **astralen** ostean nola. Xabier Mendiguren Elizegi

2 *bidaia astral*

"Nik ez zekiat ondo **bidaia astralak** zer diren -esan zidan amaitu nuenean-, baina Trikuri entzun diodanagatik, **bidaia astral** baten biktima haiz." Ez nekien serio ala txantxetan ari zen. Bernardo Atxaga

Handik goiti, aurpegi mudagaitz berberarekin hartuko nituen elkarren segidan etorri ziren guztiak: kirologia, radiestesia, alkimia, **bidaia astralak**, filosofia tibetarra eta, hutsik egin gabe, horiei denei zegozkien "Taldeak". Aingeru Epaltza

3 *karta astral*

Horoskopoa eta **karta astrala** ditut alde. Joan Mari Irigoien

Karta astrala nahi izanez gero, gutienez ere bi saio beharko ditugu. Aingeru Epaltza

4 *proiekzio astral* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Proiekzio astral edo bidaia astrala ustezko gorputz astral baten gorputzez kanpoko esperientzia bat da, non gorputz astrala gorputz fisiko utzi eta halako mugimendu independentzia eskuratzen duen. ETC-entziklopedia

---

astrapala 1 *iz* zarata, iskanbila, zalaparta. ik **astrapalada**.

Zorionez, herrixka bat zegoen handik hurbil, eta hango mujikak berehala inguratu ziren, **astrapalak** erakarririk. Jose Morales

Oraintxe da patioko ordua, ikusiko duzu nolako **astrapala**, gizajo hauek umetuta bizi dira hemen. Koldo Izagirre

Kanpoan gau betea zen eta txirri-txirrien **astrapala** itzela. Xabier Montoia

Porrot-mehatxupean aurkitzen da, gero eta indar eta **astrapala** handiagoz buruan eta ataletan erreforma eskatzen duten sekta eta heresien mugimendu eta errebindikazioek hertsatua. Joan Mari Lekuona

Tabernetako pertsianen **astrapala** nabaritzen zen tartean behin. Unai Iturriaga

2 *astrapalan*

Bolton eta bere alaba ez beste inglandar guztiek Gernikako fosforo berean kiskali behar dute, garaia zen, londondarrak babestokietara doaz **astrapalan**, sotanoetan ezkutatzen dira koitaduak, eta soinulari zoro batek kalejirarik alaiena jotzen du Waterloo-Bridge-ren erdian, edo Albert edo Victoria enbarkment-en, Londongo artadiak ikaratzeko gisaz, leherketa metraila ke guztien artean bozkario, Cecilia izenari narrutako galdatan atxikia... Koldo Izagirre

Gu hor iskanbilan eta **astrapalan** genbiltzan bitartean, Potoloak isil-isilik... Xabier Mendiguren Elizegi

Batzutan, hautsa, txingar eta guzti, soinuaren eta paparraren bitartera sartzen jakon eta han ibiliko zan **astrapalan**, soinua aparta guran, "kabuendios! " marmarka. Xabier Amuriza

2 *astrapalaka*

Ekimen honen berri izan zutenean **astrapalaka** hasi ziren. Txema Ramirez de la Piscina

---

astrapalada 1 *iz* zarata, iskanbila, zalaparta. ik **astrapala**.

Eta hori amaitzen denean, berriro hitzen karraka, algaren **astrapalada** gorputzen arteko erakarri nahi isilak desitxuratuz. Pako Aristi

2 *astrapaladaka*

Sei a aurkitzea zailagoa da, baina badira bakan batzuk: **astrapaladaka**, zalapartadaka. Iñaki Arranz

---

astringente *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)* *izond* idorreria eragiten duena; gorputzeko ehun organikoak uzkurtzen dituena; zapore lehor eta mikatzekoa.

Gero, Virginiaren senar zenaren belusezko mantal zuria jantzi, logelara sartu eta eseri egiten da aulki batean, eta Virginiak, patxada handiz, bakterioen kontrako **astringente** bat ezartzen dio masaileko ebakian, eta lotura txiki batekin estaltzen dio zauria. ETC-literatura, saiakera

Cajus direlakoak, loroak bezain koloretsuak, mami latzezkoak, baina bere zeluletan zapore handiko zuku **astringentea** gordetzen dutenak. ETC-literatura, saiakera

Linneo biologoak hamaika (11) oinarrizko zapore identifikatu zituen baina, gure ustez, sentsazio haietako batzuk (**astringente** edo lakarra, biskosoa, akuosoa, etc.) ez dira berez zapore, ukipenezko sentsazioak baizik. ETC-prentsa

Komeni da egunero barazkiak (onena, gordinik) hartzea, zuritu gabeko fruta (irasagarra, pomeloa, banana, sagar ehoa eta limoia, besteak beste, izan ezik, **astringenteak** baitira) eta osoko ogi eta laboreak. ETC-prentsa

Allendera da, agian, fruta gehien duena, fruta beltza eta gorria, amaiera **astringente** samarrarekin. ETC-prentsa

Komeni da egunero barazkiak jatea? gordinik ahal bada?, zuritu gabeko fruta -irasagarra, pomeloa, banana, sagar ehoa eta limoia izan ezik, **astringenteak** dira eta- eta ogi eta labore integralak -oloa, zekalea, arroza, garia...-. ETC-prentsa

Algarroboz eginiko hautsa ere erabil daiteke ordezko gisa, baina bestelako gustua du, eta oso **astringentea** da? asko lehortzen du?. ETC-prentsa

Bere adaska loredunak infusioan hartzen dira, **astringente** eta gernu bideen antiseptiko modura. ETC-entziklopedia

Fruituak **astringenteak** dira gordin janez gero. Eurekin marmelada eta infusioak egiten dira. ETC-entziklopedia

---

astro 1 *iz* argizagia.

Zerurantz begiratu eta eguzki, ilargi, izar eta **astro** guztiak ikustean, ez eman amore, aurrean ahozpeztuz, haiek gurtzeko tentazioari, Jaunak zuen Jainkoak munduko beste herri guztiei utzi baitizkie jainkotzat. Elizen arteko biblia

Sustrai bereko hitzak dira "ilargi" eta "hilabete"; miresgarriro hazten da, bai eta aldatzen ere; zeru-sabaian distiratsu dagoen hori ortziko **astro** guztien ikur da. Elizen arteko biblia

Atlas munduari eusten irudikatzen da historian, bera izan zelako, adimen-sendotasunez eta trebetasunez, gizonari eguzkiaren ibiliaren eta ilargiaren eta **astro** guztien iraulien arrazoien berri ekartzen saiatu zen lehenengoa. Santiago Iruretagoiena

Bigarrena maila kosmikoa da, **astroak** kokaturik dauden esferena. Xabier Kintana

Urtegaraiak eta **astroen** posizioak. Elizen arteko biblia

Hain da kaxkarra giza adimenaren izaera, non zeruko **astroen** jirabuelta espazialak, hain urrunekoak eta inportantzia gutxikoak eurak, ezagunagoak baitira gure ondoko

irizpide moral garrantzitsuak baino. Juan Martin Elexpuru

Gizonaren harrokeria ergela txit harritua geratuko litzateke ikusiko balu giza espezie osoa desagertu ondoren ere naturan ez dela ezer aldatzen eta **astroen** ibilera ez dela gelditzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Galileoren teoriak eta endelegatzen ez nizkion hitzak aipatu zizkidan: lege fisikoak, izarren, **astroen** eta gorputz guztien arteko erakarpen indarrak, eta antzekoak. Joan Mari Irigoien

Ortzira eta bertako suetara jotzen dute eta lehenbizi sua airearen aura bihurtzen omen, hemendik euria eta euritik lurra sortzen eta lurretik atzera dena berritzen, lehenbizi ura, gero airea eta azkenik beroa, eta hauek etengabe omen dihardute elkarrekin mutatzen eta ortzitik lurrera eta lurretik munduko **astroetara** ibiltzen. Xabier Amuriza

2 zeregin batean, eskuarki zineman edo kirolan nabarmentzen den pertsona.

Noiznahi etortzen zitzaizkidan hitz haiek, bai: izan ere, **astro** brasildarra bezala, ni ere gelako ahate itsusitzat hartu ninduten umetan ikaskideek, hankokerra nintzelako; nik ere futbola festa bihurtzen nuen baloia hanketan nuenean, kazetariek egindako kronikak eta iruzkinak lekuko, ikusleen pozgarri; ni ez nintzen pattarrean ito, baina, bolada batean, maiz samar mozkortu [...] Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zeruko astroak** (3)

---

astrobiologia *iz* Lurraz kanpoko bizia ikertzen duen zientziaren adarra.

Nola erabaki izaki bat bizirik dagoen kasu arrotz horietan? **Astrobiologiak** beste planeta batzuetan bizidunik dagoenetz behatzeko behar diren irizpideak zehaztu nahi izan dituenean, nahaste handia sortu da. Askoren artean

---

astrofisika *iz* astronomiaren atala, astroen ezaugarri fisikoak aztertzen dituena.

Bera beste zeregin batzuetan lanpeturik zebilen (**astrofisika** kontuak, zehaztu zidan, eta berriak muinetaraino zirraratu ninduen). Juan Garzia

---

astrofisikari *iz* astrofisika aztertzen duen pertsona.

Fisikari, eta, xuxenago, **astrofisikari** prestu eta gogotsua zen bera, baina ilusioz peitua. Juan Garzia

Izan ere, Palo Altoko **astrofisikariak** 2001 SG506 izenaz bataiatutako objektu espazialak ez zuen asteroideen patata-itxura arrunta, diseinuzko tupperware ultramodernoarena baizik. Patxi Iturritegi

Ospe handiko **astrofisikari** baten ustez, ordea, Sven gure atmosferaren orbita zehatz batean sar zitekeen jauziaren ondotik, eta, litekeena da, oraindik ere hor barna itzulika ibiltzea. Josetxo Azkona

---

astrofisiko *izond* astrofisikari dagokiona.

Bertako institutu **astrofisikoaren** ikerketak erakutsi du, gainera, eguzkiari, ilargiari eta Teide mendiari begira eginak daudela.Scott Kenyon Cambridgen (AEB) dagoen Smithsonian Behatoki **Astrofisikoko** kidea da. Berria - Kultura

---

astrolabio *iz* astroen altura kalkulatzeko labanesa.

Denak eskuetan, eta eskuak dardakadan, ganbarako leihoetako batera urreratu nintzen, eta hura zabaldurik, eguzkiaren goiera neurtzeko atondu nuen **astrolabioa**, horrexetarako da-eta, beste zeregin batzuk ahaztu barik, tresna miragarria. Edorta Jimenez

Ikusi nuen Pertsiako **astrolabio** bat; ikusi nuen, idazmahaiko kaxoi batean. Juan Garzia

Hala, bada, burua galtzen hasi zen iparrorratzaren eta **astrolabioaren** artean, nahastuz oihaleria eta artilleria, mesana eta tisana. Juan Garzia

Astrolabioa eskuetan, kutxan neraman kaiertxoa hartu nuen, eta arkatza ere bai. Edorta Jimenez

---

astrolatria *iz* astroen gurtzea.

Paganoen gurkerari buruz zeukan jakituria irakatsi zioten liburuek, geroago aipatuko dituenek, sineskera hori, oro har, **astrolatrian** oinarritzen zela pentsarazi zioten. Xabier Kintana

---

astrologia *iz iz* etorkizuna, gizakien izaera, horiengan argizagiek omen duten eraginaren bidez asmatzea helburutzat duen azterketa.

Komeni da gogoratzea, aldiz, lehenengo zazpi liburu "arkitektonikoen" ondoan, beste hiru azkenekoetan ere Errepublikaren amaiera garaiko ingeniari erromatar baten jardueraren alderdi guztiz definituak jasotzen direla modu erabat koherentean (hidraulika, kosmografia eta **astrologia** eta *machinatio* deitua, hau da, mekanika aplikatua eta makina zibilen nahiz militarren eraikuntza). Santiago Iruretagoiena

Bertako ikasketek ez omen dute unibertsitatekoen antzik, deabruak arte magikoa, **astrologia** edo nekromantzia bezalako gaiak irakasten omen ditu-eta. Anjel Lertxundi

Bere jatorriko probintziako gobernadorea, astronomian, **astrologian** eta arau-liburuen interpretazio atsedenik gabean jantzia, xakelaria, poeta eta kaligrafo ospetsua: dena utzi zuen, liburu bat eta labirinto bat taxutzeko. Juan Garzia

Matematikari fina eta astronomiazalea, beti izan zuen **astrologiaren**, iragarpenen eta magiaren lurralde zingiratsuetara arrastan joateko joera; beti saiatu zen, gainera, **astrologia** zientziarekin ezkontzen, **astrologiarentzat** esplikazio zientifikoak aurkitzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ezin dut serio hartu egun osoa **astrologiazko** aldizkariak irakurtzen eserita ematen duen norbait. Koro Navarro

"Dena zerbaitegatik da; kasualitatea ez da esistitzen"; hargatik dute eta izan dute erlijioak, **astrologiak**, mistika berritsuak eta amodio kosmikoak horrenbesterainoko sarrera eta arrakasta neska, andre eta atsoetan. une hartan bertan elurrak marmar moduko bat egin zuen haren ilearen inguruan, eta hala zirudien, malutek aura bat marraztu eta **astrologia** almanaketako erregina bihurtu nahi zutela, eta berak o!, zer txuri dagoen dena egin zuen hasperen, hor aurreko mendi horrek natazkoa dirudi. Iñaki Segurola

---

astrologiko *iz* astrologiari dagokiona.

Baina zutaz jakin nahi izango duen lehenbiziko gauza da zein den zure zeinu **astrologikoa**. Oskar Arana

Adimenok eragin erabakigarria dute gure munduan, eragin kosmikoa (inondik ere ez **astrologikoa**!). Xabier Kintana

Hareara erori perla, aleekin nahasi, eta moteldu egin zuen harearen jarioa; kalkulu **astrologikoek** adierazitako data baino egun batzuk geroago egin zen ezkontza. Jon Muñoz

---

astrologo *iz* astrologian espezialista dena.

Mareei buruzko liburu bat idatzi zuen orduan, eta beste hainbat lani ekin zion, kementsu; lan horietan guztietan nabarmena da igarle, konjurugile eta **astrologo** bilakatzeko Deeren grina. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zoaz orain jauregiaren pareko plazara eta eskain itzazu zure zerbitzuak **astrologo** eta igarle gisa. Patxi Zubizarreta

Bilakaera apetaz betetako prozesua da, eskuzabalki bizirik utzi baititu kreaziozaleak, **astrologoak** eta metereologoak ere. Pello Salaburu

Hitlerrek berak ere kasu handiagoa egiten omen dio **astrologoari** bere kontseilariei baino. Alberto Ladron Arana

Orduan, azti, igarle eta **astrologoei** dei egin zien, ametsaren esanahia azal ziezaioten. Elizen arteko biblia

Luisek heriotza-zigorra ezarri zion inguruan aholkulari gisa erabiltzen zuen **astrologoetako** bati, bete ez ziren -edo erregeren gustukoak ez ziren- iragarpen zenbait egin zituelako edo. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bat bederaren ezkutueneko esperantza eta ezkutueneko beldurren berri izateko, **astrologoez** eta barrendariez baliatzen ziren. Juan Garzia

Astrologo, konjurugile, azti, sorgin...in direla beren kabinetan lurreratu baino lehen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zeruan, **astronautak** espazioan ibiltzen hasi ziren, ontzietatik aterata. Pello Salaburu

Bi misio horietan, **astronautek** ez zuten ardura handirik hartu hegaldiaren plangintzan agintzen zitzaien jaki zientifikoki prestatu baina ez oso gustagarriak jaten. Irene Aldasoro

---

astronauta *iz* espaziontzi bateko eskifaikidea.

Eta jakina, alboko mutila X izan, gero ilargia zapalduko zuen **astronauta**, eta X-ek auzoaren berbak ahantzi ez, eta ilargia zapaldu bezain laster: "Zorionak, Zakarias" berba misterioz beteak esan zituen, munduko pertsona bik bakarrik ulertuko zituztenak. Patxi Zubizarreta

Ahotik irten eta airean, Mir estazioko **astronauta** bat bailitzan, grabitatearen legeak oro desobedituz nola zihoan ikustea iruditu zitzaion. Unai Iturriaga

Xinak ere bere lekua nahi du izarbel-espazioan eta joan den astean bi **astronauta** igorri ditu aireetan barna, bost eguneko misione baten egitera. Herria

Edwin Aldrin: Ilargian egon zen bigarren **astronauta**. Berria - Gaiak

Ari nintzen, 1965eko udan, abestia nire gelan entzuten, eta*spazio senza fine* hartan nenbilela iruditu zitzaidan, leku etereo batean flotatzen **astronauta** baten moduan, eta nire aurrean, iluntasuna zipriztinduz, milaka izpi argitsu zeudela, izarrak eta planetak, asteroideak eta kometak. Bernardo Atxaga

Baina bromptona edan eta lo geratuko da, ahoz gora, kalenturarekin ihartuta, zientzia fikziozko pelikuletan loaldi infinituak egiten dituzten **astronauta** horien moduan. Joseba Sarrionandia

Michael Foale **astronauta** estatubatuarra jabetu zen leihatilaren bakartze sistemaren drenatze mangerak zuloa zuela. Berria - Gaiak

Esan nahi baita, une batetik aurrera, komunio kosmiko horren ondoren, mundu osoari besarkaturik ez baina mundu osoari begiratzen dion **astronauta** sentitzen naizela: arrotz, kanpoko, aparteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Tristea da **astronautak** espaziontzi zuri eta polit horiekin batera desegiten ikustea; tristeagoa oraindik espaziontziak poliki-poliki lurreratzen ikustea, baina pilotuak hilda daudela jakinda, asfixiatu egin direla beren kabinetan lurreratu baino lehen. Bernardo Atxaga

Hiru **astronautak** hartu zuten atzo espazio estaziorako bidea. Berria - Gaiak

Zeruan, **astronautak** espazioan ibiltzen hasi ziren, ontzietatik aterata. Pello Salaburu

Banekien zientzialarientzat, **astronautentzat** eta mundu zabaleko erdi-kalean bizi direla uste duten mixiolari edo internazionalistentzat, lurra "planeta" zela eta ez besterik, den-denok senidetzen gaituen bizitoki globala; orain badakit nere lankide hiztegigileentzat ere hala dela. Iñaki Segurola

Soyuz-TML 4 ontzi barruan zihoazen hiru **astronautek** ez zuten, beraz, oztoporik izan Nazioarteko Espazio Estaziora sartzeko. Berria - Gaiak

Bi misio horietan, **astronautek** ez zuten ardura handirik hartu hegaldiaren plangintzan agintzen zitzaien jaki zientifikoki prestatu baina ez oso gustagarriak jaten. Irene Aldasoro

Astronauten osasuna kontrolatzeko gai diren jantziak egingo ditu ESAk. Berria - Gaiak

Bai, banekien nik guztiz bestelakoa izan zela Yuri Gagarin errusiarraren esperientzia, Lurrari bira eman zion lehen **astronautarena**, hark ez baitzuen, antza, espazioan Jainkoaren arrastorik ikusi. Joan Mari Irigoien

Astronauten adiskide mina zela esan zion nire alabari. Koro Navarro

Boninori aeronauta- **astronauta** naziek eginiko eskuerakutsia ezin zen uranioa izan. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **astronauta bat** (4); **astronauta baten** (3); **bi astronauta** (3); **hiru astronauta** (4); **lehen astronauta** (3)
> **bi astronautak** (3); **espazio estazioko astronautak** (3); **hiru astronautak** (4)
> **bi astronautek** (4); **estazioko astronautek** (3)

---

astronautika *iz*

Astronautikaren Nazioarteko Kongresuan hartu dute erabaki hori, Arianespacek jakinarazi duenez. Berria - Gaiak

---

astronomia 1 *iz* argizagien eta unibertsoaren egituraren jakintza.

Filolaosek **astronomia** eta kosmogonia aztertzen zituen, garai hartako pentsalari askok bezala. Jon Muñoz

Haien greziar aitzindariekin horretan bat eginik, arabiar jakintsuak ere "alor anitzekoak" ziren: matematika, medikuntza, **astronomia**, filosofia, fisika. Jon Muñoz

Astronomia, kosmogonia, kronologia, biologia, fisika, psikologia... txandaka guztiak hartu eta berregin ziren erlijio-irakaspen ezarriarekin bateraezinak ziren bideetatik, eta galera horiei bukaerarik ez zitzaien ikusten. Iñaki Mendiguren

Zuk uste duzu **astronomiari** buruzko egiak inoiz aprobetxatu ahal izango ditugula? Josu Zabaleta

Presokratikoen ahalegin ilustratua ukaezina da, ahalegin hori **astronomiara**, historiaren irakurketara -Herodotorekin- edo medikuntzara hedatu zela bezain ukaezina. Askoren artean

"Mediku jauna, nik deus guti dakit medizinaz, baina **astronomiaz** bai, zerbait badakit, eta hala erraiten dizut ezen Paracelsok planetez dioena ergelkeria handi bat dela. Joan Mari Irigoien

Baina enekin **astronomia** ikasketak egin zenituenean, eta horien aurretik matematikazkoak, haren prestakuntzarako hain beharrezkoak direnak, gero eta pozago sentitu nintzen zure adimen bikain eta berehalako ulermenagatik¸ eta matematikarako zenuen jaugina ikusita, horretan aritzeko askatasuna utzi nizun, zure etorkizuna horixe izanen zela jakinik. Xabier Kintana

2 ***indiar astronomia*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Indiar astronomiak historia luze bat dauka bere atzean, garai prehistorikotik gaur egunerarte datorrena. **Indiar astronomiaren** lehen aztarnak Indoko haranean edota lehenagoko garaian kokatu daitezke. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **astronomia lurraren** (3)
> **astronomiari buruzko** (3)

---

astronomialari *iz* astronomoa.

Schiaparelli, gure mende honetako **astronomialaririk** gailenetakoa eta behatzailerik ziurrenetako bat denak, lerro beltz zuzen edo irudi geometriko erregularrei jarraituz eteten ziren pila bat aurkitu zuen, kontinenteak zeharkatuz Marteko itsasoak lotzen zituztenak! Josu Zabaleta

---

astronomiko 1 *izond* astronomiari dagokiona.

Beste ziklo **astronomiko** bat, gizakia haren esklabo izan zelarik garai batean, urtaroen zikloa izan zen. Iñaki Mendiguren

Heldutasuna, baina, ez joera eta apeten araberakoa, baizik eta beren barne-muinekoa, lege **astronomiko** aldaezin modukoren baten araberakoa. Ander Irizar

Ondoren Maimonek esfera exzentrikoak aipatzen ditu, Ptolomeoren sistema **astronomikoan** argizagien mugimendu irregular batzuk azaltzeko balio zutenak. Xabier Kintana

Zoritxarrez, geu gara esperantza oraintxe bertan galtzen has gaitezkeenak, zoriontasun unibertsala lortzeko falta den denbora neurri **astronomikoetan** zenbatzen delako, eta belaunaldi honek ez du uste hainbeste biziko denik, hagitz desanimatzen ari dela nabarmen izateaz aparte. Jon Alonso

Egutegi **astronomikoarekin** erkatuz gero, kalendario zaharrak bazuen 80 eguneko hutsarte bat. Pello Salaburu

Antoine Abbadiaren bizitoki eta behatoki **astronomiko** izandako etxearen inguruetaraino joan behar genuen. Juan Luis Zabala

Desegokitasun **astronomikoek** iraun egin zuten Julio Zesar astronomoen konklusioei diktadore-laguntza emateko egoeran egon eta "juliotar" egutegia sartu zuen arte, eta honek, zuzentasunera hainbesterainoxe hurbiltzen zenez, milurteko bat eta erdi baino gehiago iraun zuen. Iñaki Mendiguren

2 *behatoki astronomiko*

Oroitzapen historikoen aldetik ere, ez zegoen gertutasun handirik: Franco eta Hitler elkartu ziren lekutik gertu geunden eta Antoine Abbadiaren bizitoki eta **behatoki astronomiko** izandako etxearen inguruetaraino joan behar genuen. Juan Luis Zabala

Munduko **behatoki astronomikorik** garrantzitsuenetako batzuk bertan daudelako egin dute. Berria - Gaiak

Erne Calar Alto **behatoki astronomikoan** bukatzen den etapan. Berria - Kirola

3 *erloju astronomiko*

Poliki-poliki Thomasek bere suhia Enperadorearen hornitzaile izendatzea lortu zuen, jaki kontuetan, eta Nikolak, aitaginarrebak emandako diruari eta laguntzari esker, denda berria ireki zuen, Azoka Plaza Zaharrean, pragatarren oroitza zenez geroztik, **erloju astronomikoa** dagoen plazan. Felipe Juaristi

4 *ikur astronomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Bere **ikur astronomikoa**, zuzi edo gezi moduko bat duen zigor bat da. ETC-entziklopedia

Lurraren **ikur astronomiko** estandarra zirkulu batez borobildutako gurutzea da. ETC-entziklopedia

5 *nabigazio astronomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Nabigazio astronomikoan, prezisio gehiena 0,1 mila nautiko bat suposatzen du (200 metro). ETC-entziklopedia

6 *objektu astronomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi)*

Ikertzaileen arabera, ez du ematen irrati interferentzia edo **objektu astronomiko** baten zantzua denik. ETC-prentsa

Objektu astronomikoa behatu daiteke inguruan sortzen duen fenomenoengatik, zuzenean ikusi gabe. ETC-prentsa

Objektu astronomikoaren izena M hizkiarekin hasten bada, Charles Messier astronomoak (1730-1817) katalogatutakoa izango da. ETC-prentsa

Zulo beltza dentsitate handia duen **objektu astronomikoa** da, eta ezerk ere ezin dio bere grabitate indarrari ihes egin. ETC-prentsa

Gainera, **objektu astronomikoak** teleskopioaren bidez ikusteko aukera izango da. ETC-prentsa

Orain arte, haien existentziaren froga bakarra beste **objektu astronomiko** batzuetan duten eragina zen, baina ez zen erabatekoa. ETC-prentsa

Objektu astronomikoen distirak oso intentsitate desberdinen artean mugatuta daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

Planeta izar baten edo hildako izar baten inguruan orbita egiten duen **objektu astronomiko** bat da, bere grabitazio indarrak oreka hidrostatiko biribildua izateko masa nahikoa duena, ez dena fusio termonuklearra egiteko bezain handia eta bere inguruko orbita planetesimalez garbitu duena. ETC-entziklopedia

Radar astronomia gertuko **objektu astronomikoak** objektu hauen mikrouhinak islatuz eta oihartzunak aztertuz behatzeko teknika bat da. ETC-entziklopedia

Sestantea **objektu astronomikoak** ostertz zeruertzaren gainetik zein garaieran dauden neurtzeko erabiltzen den tresna bat da. ETC-entziklopedia

7 *ostertz astronomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Ostertz astronomikoa Lurrarekiko tangentea den planoak zeru esferan moztutako zirkulua dela egiazta daiteke. ETC-entziklopedia

8 *unitate astronomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Hori bai, 0,5 eta 10 **unitate astronomiko** bitartean egon beharko dute. ETC-prentsa

Eguzki-sistemako oinarrizko neurketa-unitatea **unitate astronomikoa** da (UA), eta Eguzkitik Lurrera dagoen distantzia adierazten du. ETC-literatura, saiakera

Angstroma eta **unitate astronomikoa** unitate eratorrien adibideak dira; hots, oinarrizko sortako unitateen (metro, kilogramo eta segundo unitateen) funrzioan definituak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

astronomo 1 *iz* astronomian espezialista den zientzialaria.

mendea: Eratostenes, matematikaria, **astronomoa**, geografoa, Alexandriako liburutegiaren zuzendaria; hark neurtu zuen aurrenekoz zehaztasunez Lurra. Jon Muñoz

Antoine d'Abbadie d'Arrast, **astronomoa** eta Frantses Zientzia Akademiaburu izan zenak, euskal kultura lagundu zuen, bereziki Lore jokoak bere sakelatik diruztatuz. Herria

Astronomoen ustez, berilioak duen ezaugarririk aipagarriena izar artean sortzen dela da. Berria - Gaiak

Planeta horretan izotza ote dagoen da **astronomoen** zalantza nagusietako bat. Berria - Gaiak

Klaudio Ptolomeo, geografoa eta **astronomoa**. Jon Muñoz

Astronomoak 'Lucy' diamante kosmikoa aztertzen ari dira. Berria - Gaiak

Europako **astronomoek**, aristotelikoak zirenez gero, Aristotelesen Fisikaren jarraitzaileak alegia, izarrak aldaezinak zirela uste zuten: izarrak eter zeritzan substantzia ustelezin batez inguratuta zeudela eta finkoak zirela. Bernardo Atxaga

Ahotsaren soinuak ere, era berean, ezaugarri desberdinak eta askotarikoak izaten ditu herri desberdinetan; horren arrazoia zera da, ekialdea eta mendebaldea bereizten dituen mugak lurreko nibelaren inguruan, munduaren goiko aldea eta beheko aldea banantzen diren lekuan, dirudienez berez nibelatutako zirkunferentzia moduko bat duela, **astronomoek** horizontea deitzen dutena. Santiago Iruretagoiena

Frantziako **astronomoek** aurkitu zuten 4179 Toutatis asteroidea, 1989an, eta galiarren jainko horren izena eman zioten. Berria - Gaiak

Hawaii, Kalifornia eta Texasen (AEB) dauden teleskopioei esker aurkitu dituzte **astronomoek** bi planetak. Berria - Gaiak

Erudizio zabalean igeri dabiltzanei gehien kostatzen zaiena zera da, beren frogak gaiari dagozkion lekuan aurkitzea, eta, **astronomoek** bezala hitz egiteko, Eguzkiaren lekua aurkitzea. Iñaki Iñurrieta

Gobernuak, **astronomoak** bezala, urtekako neurketaz arduratzen dira, baita errepikatzen den urte-zikloaren artikulazioaz ere. Iñaki Mendiguren

Segidan Ptolomeoren teoriak esplikatu zizkidan, erraiten zidala nola **astronomo** greziarrak orbiten inguruko orbitetarat jo behar izan zuen -epizikloideetarat eta eszentriketarat-, planeten eta izarren mugimendu uste baino konplexuagoei behar bezala ihardesteko. Joan Mari Irigoien

Bai Eudoxo, bai Hiparko, bai Ptolomeo -greziar **astronomo** handi gehienak, alegia- gogotik ahalegindu ziren eredu matematikoak eraikitzen, zeruko gorputzen mugimenduak azaltzeko, eta, azken batean, "itxurak gordetzeko"; hala zioen, behintzat, Ptolomeok. Jon Muñoz

Arabiar munduko **astronomorik** handienetariko bat bihurtua zen al Khaiam. Jon Muñoz

Erresuma Batuko Unibertsitate Irekiko **astronomo** talde baten ustez, gurea moduko beste 50 planeta egon daitezke beste eguzki sistema batzuetan. Berria - Gaiak

2 (izenondo gisa)

Etxe zahar batzuk, hauetako bat Alfontso Jakituna errege **astronomoaren** garaian jasoa; eliza dotore samarra, zaldalearen gordetegi bilakatua; ibai polit biak, Oria eta Araxes, hauxe ukan dut nekearen ordain guztia. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **astronomo talde batek** (7); **dute astronomo** (4); **nazioarteko astronomo talde** (4)
> **mikel susperregi astronomoa** (15)
> **astronomoen arabera** (8); **astronomoen artean** (3); **astronomoen esanetan** (6); **astronomoen ustez** (4); **da astronomoen** (3)

---

astun 1 *izond* pisu handikoa delako, eramaten, jasotzen, higitzen gaitza edo neketsua dena.

Berriro ikusi zuen nola ixten zen bere atzean "Ero Etxea" idatzita zegoen etxeko ate **astuna**. Josu Zabaleta

Barre egin zuen Betancesek, orri biko ate **astun** bat zabaldu aurretik. Koldo Izagirre

Txarrantxa-hesi lodiak eta harrizko zutabe **astun** biren erdian zabaltzen zen burdinazko ate arranditsuak harrapatu zidan begirada orduan Haratago, ia soslai betz bat baizik ez itzaletan, benzina bidoi **astun** batzuk. Urtzi Urrutikoetxea

Bere gelan intxaur-zurezko kutxa **astun** bat zuen, tailatua. Fernando Rey

Jaiki barik atera zituen zakutotik tresna metaliko **astun** bi. Josu Landa

Horrela, bi maleta **astun** haiekin egin behar izan nuen geltokitik herrirainoko bidea; eta aldapa galanta zegoen egiteko, herrietan garaienetakoa baitzen Salvenach. Josu Zabaleta

Maleta bat edo fardel **astun** bat esku batean hartzen dugunean, gorputzaren pisua baino bost edo sei aldiz indar handiagoa jasan behar izaten du beste aldeko aldaka-hezurrak Nahiz eta irrikan egon, ez nintzen ausartu haiek irakurtzera: beldur nintzen aitak zerutik ikusi eta, haserreturik, beroki **astun** hura jantzita errieta egitera jaitsiko ez ote zitzaidan. Irene Aldasoro

Zuen aita Salomonek uztarri **astuna** ezarri zigun. Elizen arteko biblia

Arindu, bada, zuen aitak ezarri zizkigun morrontza gogorra eta uztarri **astuna**, eta zerbitzari izanen gaituzu. Elizen arteko biblia

Zorionekoa ene burutazio hura, kontzientzian nuen karga **astuna** guztiz arindu zidana. Joan Mari Irigoien

Hura zirrara gurea bizikleta beltz **astun** haietan jarrita urrundu direnean toldopeak ikertzeari lagata laugarren biltegira buruz abiatzen garela! Koldo Izagirre

Ekaitz zaparradaren lehenengo tantak **astunak** eta bakanduak izaten dira. Josu Zabaleta

Inork uste badu gorputz **astunagoak**, hutsunean zehar bizkorrago zuzen doazelako, arinagoen gainera eror daitezkeela eta horrela mugimendu sortzaileak berritzeko moduko kolpeak eragin ditzaketela, egiazko arrazoitik at eta urrun dabil. Xabier Amuriza

Ondoren auto **astun** batek dardaran jarri du etxea. Monika Etxebarria

Nor gogoratzen da nitaz? Emakume gazte **astun** bat, agian, Londresen... Eta nitaz pentsatzen ari ote da, zinez? Monika Etxebarria

Egongelan, oin **astun** batzuek zoruko zurajea dardararazten zuten. Alberto Ladron Arana

Eguna amaitzeko, txahalki-puska hotz bat eta litro erdi aza-zopa mikatz zerbitzatu zizkioten; eta gero, lo **astun** batek hartu zuen. Jose Morales

Zama **astun** dut gainean zure haserrea, zure atsekabe-itsasoan murgildurik. Elizen arteko biblia

Sastakai baten, ezten baten eta hortz batzuen zauriak daramatzat nire baitan; eta zama luze eta **astun** batena ere bai. Agustin Otsoa

Bere kapa beltzean bildua zihoan, eskumakila begitsuan bermatua, urrats **astun** eta motelean. Patxi Zubizarreta

Zalantza **astun** hura zeukan kasko-zokoan danbaka jagoitik. Itxaro Borda

Kontaketaren amaiera isilune **astun** baten abiapuntua izan zen. Migel Angel Mintegi

Isiltasun **astun** bat nagusitu zen azken hitz horien ondoren. Jon Muñoz

Han egon ginen zain aire **astun** eta itogarri hartan minutu horietan guztietan. Oskar Arana

Gero, tupustean, bezero berak urratu zuen isiltasun **astuna**, eta emakumeari begiraturik: [...]. Anjel Lertxundi

Lore lurrin **astun** hura gelditu zitzaion akorduan betirako, loreen eztitasun betegarria zen heriotza. Koldo Izagirre

Eta zure behako hura gogorra zen, zorrotza, iluna, hodei **astun** baten gerizpean sortua bezala. Joan Mari Irigoien

Egun hartan, bigarren ordua oso **astun** egin zitzaidan, lehenengoa baino bost bider gehiago, eta hirugarrena, itogarri. neka-neka eginak baitzeuden aire **astun** geldo harengatik bideko maldagatik baino gehiago. Bernardo Atxaga

Iragan **astun** lakarraren eta balizko geroaren artean iraun nahi ez zutenek, orain aberats eta zoriontsua erakusten zuten herrialdeetara ihes egiten zuten. Itxaro Borda

Ardo **astun** eta bortitz bat edan zuten, ardo hungariar bat, eta zigarroak erretzen egon ziren isilik. Xabier Olarra

Gorputz osoaren sentimenetik gogor eta bigun, hotz eta bero, leun eta latz, **astun** eta arin den oro. Imanol Unzurrunzaga

Beste bekatu **astun** bat nire bekatuen zerrendan. Josu Zabaleta

Mayor Orejaren artilleria **astun** osoa -bere armada garaiezina- umiliatuta geratu zen. Txema Ramirez de la Piscina

Astun samarra da tipoa, baina ez da pertsona txarra. Iban Zaldua

Gainera, **astunago** bihurtuko zuten ekipajea. Alberto Ladron Arana

Uraren epeltasunak, hotzikara bortitzez izozten zaituzten epeltasun horietako batek, euri ukiezinaren epeltasun **astunak** azpian zanpaturik zeukan kalea, bazirudien gasaren garra nekatzen eta iluntzen zuela. Josu Zabaleta

Haritzezko enbor puska eskerga zen, txit **astuna**, ebakiondoz eta ildoxkaz josia. Karlos Zabala

2 (hitz elkartuetan)

Eta, ikaragarri zurbil, ia urdin baina lehen bezala isilik, lehengo burgoikeria eta hantustez betetako harridura berarekin, finko begiratu zion Liubari bere begi **astun** geldiekin. Jose Morales

Gero, bat-batean, iluntasuna nagusitzen zen ostera, ilargiaren dirdirak aspaldi galdua baitzuen bere zilarra, hodei sabel-**astun** baten atzean ezkutatu zenetik. Anjel Lertxundi

Galdera mordoa nuen nik egiteko: gehiegi, eta **astun**-larriegiak berarentzat eta neuretzat. Juan Garzia

Eta, batere damurik erakutsi gabe, musika-gelara itzuli eta bere aulki tapizatuan eseri zen **astun-astun**. Anjel Lertxundi

Noraren aitak **astun-astun** hartu zuen arnasa. Anjel Lertxundi

Gezia bailitzan igaro zuen zerua, eta Mortaingo hiriaren aurrean erori zen azkenik **astun-astun**. Josu Zabaleta

Etxe zahar izugarri handia, lainoetan galdua, horma-altua, ate-**astuna**, ziegez beteak diruditen sotoak dituena, eta inoiz bertan bizi izan ziren hilen arrastoak nonahi igartzen zaizkiona. Koro Navarro

Irudimen gabeko polizia profesional buru-**astun** eta tentel modura agertuko direlako ustea izango da usterik zuhurrena. Edorta Jimenez

Gure aita gizon handi, bizkar-**astun** bat zen, ilea motz-motza ibiltzen zuen, kokots bikoitza zuen, eta sabela izugarri handia. Koro Navarro

3 (adizlagun gisa)

Itsasoa ikusten dut, **astun**, mugitu gabe, Bouville ikusten dut. Monika Etxebarria

Beste itsasontzi batzuek nekez nabigatzen dute, **astun**, merkurio-korronte baten aurka borrokan ariko bailiran. Jon Alonso

Astun mugitu zen, begiak ergelki klaskatuz, zarata hura zerk egin ote zuen begiratzeko. Iñaki Mendiguren

Hatz-puntaz lehortu da, anaia nagusi Felixek busti gabe utzi dituen zapi-muturrekin, eta burua **astun**, eztarria erreta, barre-algaraka lehertu da. Itziar Otegi

Gela mehar hartako hauts giroa **astun** sartu zitzaion biriketan. Anton Garikano

Martinek pistola kargatu zuen, zaldi bat eta zalduna kotxera hurbiltzen ikusi, su egin zuen eta zaldia **astun** erori zen lurrera. Koro Navarro

Burua **astun** neukan, bezperako grappa eta ardoaren eraginagatik eta gaizki lo egin izanagatik. Anjel Lertxundi

Gaua astiro eta **astun** igaro zen, eta etortzear zegoen egun erabakigarriak are beldurgarriago egiten zuen. Patxi Zubizarreta

Baina ezin ireki nuen; eta nire dardar-ikaretan, ihes egin zidan eskutik eta **astun** erori zen, eta mila puskatan hautsi zen. Koro Navarro

Astun erori nintzen nire neskaren gorputz gainean, arnasestu batean, musukatu ginen, eta haren beso kuttunak sentitu nituen ni biltzen. Juan Martin Elexpuru

Ipuina **astun** geratuko litzateke Txetxuren argudioak hona ekarrita. Xabier Mendiguren Elizegi

Are gehiago, izugarri poztuko nintzateke anaien bertuteaz, haien eta neure irabaziagatik, eta, ohean gaixorik banengo ere, ez litzaidake **astun** egingo haiei kasu egitea. Askoren artean

Botak arraro eta **astun** sentitzen ditut oinetan. Mirentxu Larrañaga

-Ene, Potter, neskalaguna duzu eta! -esan zuen Malfoyk geldi eta **astun**. Iñaki Mendiguren

4 *arma astun*

Merkatari-aireko haiek, berriz, ontziko **arma astunak**, kanoiak-eta, erosi egin nahiko lituzketela diote. Edorta Jimenez

Borroka partikularretan aldezkariak beren pieza guztiez armatuta zeudenez, eta sendotasun eta indar jakin bateko **arma astunek**, hala defentsarako nola erasorako, egundoko abantaila ematen zutenez, jende askori sartuko zitzaion buruan borrokalari batzuen arma sorginduen iritzia. Iñaki Iñurrieta

Izan ere, okupatzaileei aurre egiten dabiltzan ekintzaile irakiarrek hiri honetan musulman sunitak dira nagusi beren **arma astunak** entregatzeko exijitu diete AEBek, hiriko agintariekin egindako negoziazioetan horixe hitzartuta. Berria - Mundua

Efe agentziaren arabera, Polizia bertara ailegatu zenean "tiroen aztarnak, **arma astunen** bala zorroak eta granada-jaurtigailuak» aurkitu zituen. Berria - Euskal Herria

5 *artilleria astun*

Artilleria astuneko bateria baten ondotik igaro gara, eta artillerialariak mahai baten inguruan eserita ikusi ditugu, karta-jokoan. Mirentxu Larrañaga

Artilleria astuna atera du berriz ere PPk (gero eta disimulu gutxiagorekin egiten du) bere aspaldiko etsaiak suntsitzeko asmoarekin: kultura eta adierazpen askatasuna. Berria - Kultura

Errealitate mediatikoa inoiz baino birtualago azaldu zen; Mayor Orejaren **artilleria astun** osoa -bere armada garaiezina- umiliatuta geratu zen, ez baitzituzten euren helburuak lortu, ezta hurrik eman ere. Txema Ramirez de la Piscina

Bere esanetan, hego osetiarrek gau osoan eraso zioten Eredvi, **artilleria astuna** erabiliz, eta orduan Armadak "erantzun» egin zuen, bake indar mistoei erasoaren berri eman ostean. Berria - Mundua

6 *bekatu astun*

Gizaki hau **bekatu astunetan** erraz eroriko litzateke gustamoldeak kentzen badizkiote, berrogei urtean edukitako gustamoldeak. Joan Mari Lekuona

Beste **bekatu astun** bat nire bekatuen zerrendan. Josu Zabaleta

Herritarren zenbaketa egin ondoren, bihotzeko harra sentitu zuen Davidek eta esan zion Jaunari: -**Bekatu astuna** egin dut, bai. Elizen arteko biblia

7 *hidrogeno astun* deuterioa.

Munduko itsaso eta ozeanoetako uretan, esate baterako, milioika urterako energia sortzeko **adina** hidrogeno astun dago. Berria - Gaiak

8 *ibilgailu astun*

Izan ere, jai egunak zirela-eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako errepideetara irten ezinik egon diren **ibilgailu astunak** gaur itzuliko dira bidera. Berria - Euskal Herria

Frantzian **ibilgailu astunak** ezin dira igande eta jaiegunetan ibili. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoan, berriz, errepide sare guztia irekita zen eguerdirako, **ibilgailu astunentzat** izan ezik. Berria - Euskal Herria

9 *industria astun*

Hau da, iragan mende hasierakoa, **industria astunarena**, fordismo izeneko ekoizpen-moduena, komunismoarena, bukatu diren edo hondakin soil diren kontuena». Berria - Kultura

Izan ere, garai hartan, burutu berria zuen Alemaniak batasun politikoa, eta ahaleginean ari zen **industria astuna** eraikitzen eta koloniak konkistatzen. Koro Navarro

Eskuma aldera begiratu ostean baserri solte batzuk **industria astunaren** eremu baten erdian. Paddy Rekalde

Euskal Herrian **industria astunarenak** egin du, zerbitzuek gero eta indar handiagoa daukate eta ondo prestatutako jende askorik ez dago. Berria - Euskal Herria

"**Industria astuna**» desegin nahi izatea egotzi zion PSOEri, eta jakinarazi zuen "espekulazioak eta interes politikoek» areagotu dutela "Ezkerrealdearen beheraldia». Berria - Ekonomia

Hau da, iragan mende hasierakoa, **industria astunarena**, fordismo izeneko ekoizpen-moduena, komunismoarena, bukatu diren edo hondakin huts diren kontuena". Anjel Lertxundi

Industria astunak, armamentu ikaragarria eta atomo-bonba izan arren (oso garestiak, jakina), gauza askotan India ez da bizi XXI gizaldian. Gotzon Garate

10 *lo astun*

Quenu ez zen ohartu emaztea jaiki zela, **lo astun** egin baitzuen bezperan egindako lotsagabekeriarengatik. Karlos Zabala

Buruhauste honetan nengoelarik, bat-batean eta gogorik ere gabe, **lo astun** batek, oso **lo astunak** hartu ninduen. Patxi Ezkiaga

Eguna amaitzeko, txahalki-puska hotz bat eta litro erdi aza-zopa mikatz zerbitzatu zizkioten; eta gero, **lo astun** batek hartu zuen, edo, Errusia zabaleko alderdi batzuetan esan ohi dutenez, harriak bezala lo egin zuen. Jose Morales

Bertzelakoan, hamahiru urte ingurukoak ditut lehen-lehenak eta, hamahiru urtetan, imajina izugarriak kaskoratzen zitzaizkidan, lo arinak **lo astunari** zainak erauzi ondoan, erdi amets erdi ernai egiten nituen goiz-orenetan. Aingeru Epaltza

Hots handia dagoela **lo astunean** egon eta hotsa isiltzean esnatzen diren pertsonena ez da gezurra. Irene Aldasoro

Baina nik begiak itxita eta mugitu ezinik iraungo nuke, jarrera berean, **lo astunean**. Sonia Gonzalez

Lo astunean zerraldo, lorategi sekretuetara eramaten zituzten gudari gazteak. Jon Muñoz

11 *pisu astun*

Pisu astunetako erregea izan nahi du bosgarrenez; 42 urte ditu eta egurtu egingo dutela diote aditu askok. Berria - Kirola

Eta hamar konbate horien ondoren Ubanbek Europako txapelketa jokatuko dik **pisu astunetan**. Bernardo Atxaga

Kanadar baten kontra jokatzen omen du **pisu astunetako** finala. Harkaitz Cano

Lehenik eta behin, halere, hobe kontuak egin, ez duk uste? -**pisu astuneko** boxealariak bezain erromantikoa zen, alajaina! Migel Angel Mintegi

12 *ur astun*

Halaber, **ur astunez** funtzionatzen duen ikerketa erreaktorearen eraikuntzari ez ekitea aztertu behar du, baita ANEU itunaren Protokolo Erantsia erabat bete ere. Berria - Mundua

Metalezko ortzadar azidoa hedatzen zen Lutxana bien arteko **ur astunetan**. Paddy Rekalde

13 *zango-astun* *(corpusean **zangoastun** soilik)*

Hanka-puntetan jarririk, gora eta behera higitu du gorputz oldarkotea, halako dotorezia **zangoastun** batez. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aire astun (3)

astun astun (7); **astun astun** (7); **astun baina** (3); **astun bat hartu** (3); **astun bat zen** (3); **astun batek** (8); **astun baten** (12); **astun batez** (5); **astun egin** (4); **astun egiten** (6); **astun erori zen** (4); **astun haietako** (3); **astun harekin** (3); **astun haren** (3); **astun hori** (6); **astun horiek** (3); **astun horrek** (5); **astun horren** (3); **astun hura** (6); **astun samar** (4); **astun samarra da** (4); **astun sentitzen** (4)

ate astun (5); **beltz astun** (3); **betazalak astun** (3); **bezain astun** (4); **burua astun** (4); **burua oso astun** (3); **hain astun** (4); **handi eta astun** (3); **harri astun** (4); **isiltasun astun bat** (3); **karga astun** (3); **lan astun** (4); **lo astun** (3); **luze eta astun** (3); **metal astun** (3); **oihal astun** (3); **pisu astun bat** (4); **zama astun bat** (6); **zama astun batetik** (4)

airea astuna (3); **aitak uztarri astuna** (5); **astuna arinduko** (3); **astuna bihurtzen** (3); **astuna den** (6); **astuna du** (3); **astuna egiten** (11); **astuna ere** (4); **astuna ez** (3); **astuna**

ezarri zizuela (4); **astuna gertatu** (3); **astuna izan** (14); **astuna izanen** (3); **astuna izango** (5); **astuna zabaldu** (3); **astuna zara** (3); **astuna zirudien** (3); **ate astuna** (5); **bezain astuna zen** (4); **buru astuna** (5); **ere astuna** (3); **ere zama astuna** (3); **ez astuna** (3); **gorputz astuna** (4); **hain da astuna** (3); **hain duk astuna** (3); **horren astuna** (4); **industria astuna** (3); **karga astuna** (6); **lan astuna** (5); **neke astuna** (3); **oso astuna zen** (4); **pisu astuna** (8); **uztarri astuna ezarri** (6); **zama astuna da** (3); **zeinen astuna** (3)

are astunago (3); **astunago eta astunago** (3); **astunago eta astunago** (3); **baino astunago** (8); **gero eta astunago** (9)

are astunagoa (4); **astunagoa bihurtzen** (3); **astunagoa da** (3); **astunagoa egiten** (3); **astunagoa ezarriko dizuet** (4); **astunagoa zen** (6); **baino astunagoa** (8); **gero eta astunagoa** (3)

astunagoak dira (3); **pilota astunagoak aukeratu** (4)

arma astunak (5); **astunak dira** (5); **astunak egiten** (4); **astunak hartu** (3); **astunak izaten** (3); **astunak ziren** (3); **ate astunak** (4); **bezain astunak** (4); **esku astunak** (4); **hain astunak** (4); **hitz astunak** (3); **ibilgailu astunak** (5); **mailu astunak** (3); **metal astunak** (6); **oso astunak** (7); **pauso astunak** (4); **pilota astunak** (3); **pisu astunak** (4); **urrats astunak** (4); **zama astunak** (7)

astunaren azpian (3); **astunaren kontra** (3); **ate astunaren** (3); **gurutze astunaren** (4); **industria astunaren** (3)

lo astunean (3)

astunegia zen (4); **lan astunegia** (3); **zama astunegia da** (3); **zama astunegia izan** (4)

astunen azpian (3); **astunen bat** (3); **bota astunen** (3); **errezel astunen** (3); **metal astunen** (3); **pisu astunen munduko** (3); **zama astunen** (3)

astunena izan (3)

pisu astunetako (7)

pisu astunetan (5)

kate astunez lotu (3)

astunik gabe (3)

---

astunagotu *iz* astunago bihurtu.

Bidearen ikusteko ozta altxatzen dute burua, euriak **astunagotu** izan balitu bezala, burusiak edo bidea **astunagotzen** dituen moldean. Xabier Montoia

Ada hilda dago, ordea, eta malenkoniak ez dit zeruaren gris arbelkara **astunagotzea** beste deus ekarriko. Anjel Lertxundi

---

astundu, astun(du), astuntzen **1** du *ad* astun edo astunago bihurtu.

Kanila ireki zuen, ur beroa bainera betetzen has zedin eta lurrinak bainugela **astun** zezan. Joxemari Iturralde

Gero, ekaineko arratsalde sargorietan, kiratsa lurretik gora altxatu eta lurrun atsitu batek **astundu** zuen eguratsa. Karlos Zabala

Baina nork **astundu** du berriro topikoa, nork astindu ditu Noren eta Toren artean beren tokia betirako hartua zutela ematen zuten hautsak, nork deskubritu du Jeronimoren sekretua, nork jarri du neska gaztea Labaingo bidean? Anjel Lertxundi

Eguraldi ederra zegoen, baina hain zen lodia lokatza, ezen berehala itsatsi baitzitzaien gurpilei, feltrozko estalki bat balitz bezala, eta horrek ikaragarri **astundu** zuen kotxearen ibilera. Jose Morales

Sablé andrearen begiak **astuntzen**, ahoa dardarka hasten, bularra arnasbehartzen ikusi nuen. Josu Zabaleta

Ibaitik zetorren lei-haize lehorrak arnasa **astuntzen** zidan, arindu ordez. Anjel Lertxundi

Gauzarik ezkutuenez hitz egin dugu, baina bihotza **astuntzen** zidaten eta oraindik **astuntzen** didaten gauzez ez dugu hitz egin oraindik. Josu Zabaleta

Peter ere deseroso samar sentitu zen, burua **astunduta** bezala; soinu ozen batzuk entzun zituen, eta segituan begiratu zuen ingurura, baina bere dominstikuak ziren. Julen Gabiria

Beraz, bihotza **astunduta**, neronetaz ere argitasun handirik gabe, espazioren batean hedaturik edo isuririk edo pilaturik edo puzturik ez zegoena edota era horietako formaren bat hartu ezin zuena deus ez zela uste nuen. Imanol Unzurrunzaga

Esnatzen naiz nire ametsen hizkuntza deszifraezinaren aurrean betazalak **astunduta**, mutu subkontzientearen hainbeste ordutako iharduera indartsutik erauzi ezin ditudan hitzen aurrean. Pako Aristi

Horren kontra, horri ihesi ibiltzeagatik bide zaude horren nekatuta, horregatik bide zauzka horren harrapatua egunetik egunera **astunduz** doan neke izugarri horrek. Lourdes Oñederra

Isiltasuna **astunduz** doa, baina Llumek badaki berandu dela dagoeneko gorde-bideak hartzeko. Antton Olano

Irakurketa gehiegi **astunduko** luketen xehetasunetan sartu gabe, har dezagun gogoan behintzat, hots baten ozentasuna beste baten bikuna denean, bien arteko desberdintasunaren neurria 3 dB dela. Lourdes Oñederra

2 (era burutua izenondo gisa)

orre hauetarik bat begitandu nahi baldin baduzu, imajina ezazu lau kiribil lodi, pitxar sabeldu eta **astundu** moduko bati eusten, honen buruan pegar klasiko delako bat duela, urna esaten zaien horietarik, anfora baten eta botijo baten uztartzetik sortua iduri. Koldo Izagirre

Basilea ezagutzeko gogoa baino, nire buru **astundua** lijertzeko premia nuen, eta loak ez bezala lagunduko zidan Basileako kaleetan usainez usain eta hotsez hots galtzeak. Anjel Lertxundi

---

astungarri **1** *izond* astuntzen duena.

Zirkunstantzia **astungarri** bat, hamaikagarren mendean, bi kristau-gizarteen indar eta perspektiba erlatiboen bat-bateko, ustekabeko eta egundoko alderantzikatzea izan zen, kapitulu honen aurreko atalean ohartarazi duguna. Iñaki Mendiguren

Engoitik, bortizkeria kasuak bikotearen baitan gertatzea **astungarritzat** hartuko du legeak, ez aringarritzat orain arte bezala. Berria - Euskal Herria

Marinel haiek, haize ona zenean, sare baldar bat eraisten zuten, zeinak zurezko buiak baitzituen eta **astungarritzat** harriak. Juan Garzia

2 ***inguruabar astungarri*** *(corpusean ez dago; ETCn **37** agerraldi)*

Aldiz, Urtizberearen kasuan, erailtzen ahalegintzeagatik ezarri beharreko zigorretan txikiena jarri dio epaileak San Clementeri, akusazioak ez baitzuen epaiketan **inguruabar astungarririk** aintzat hartzeko arrazoirik eman. ETC-prentsa

Araudi berriaren izapideak 2009an hasi ziren egiten, eta, hasieran, heriotza zigorra ezartzeko asmoa zuten "**inguruabar astungarriak**" dituzten homosexualei dagokienez, besteak beste "berrerorleei", baina, azkenean, kartzela zigorra bakarrik ezarri dute gehieneko zigor gisa. ETC-prentsa

Arau-haustea kualifikatzen duen egitateari edo **inguruabar astungarri** bati buruzkoa bada okerra, orduan, egitate edo inguruabar hori ez da aintzat hartuko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta ez zion balio gezur hura errukizkoa zela esateak, xehetasun hura **inguruabar astungarri** gertatzen baitzitzaion, aringarri gertatu beharrean. ETC-literatura, saiakera

Arau-haustea kualifikatzen duen egitateari edo **inguruabar astungarri** bati buruzkoa bada okerra, orduan, egitate edo inguruabar hori ez da aintzat hartuko. ETC-zientzia, zuzenbidea

ZKren 92. artikuluak berrerortzea **inguruabar astungarritzat** hartzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pazienteen, haien senitartekoen edo hirugarrenen aurrean halakorik egitea **inguruabar astungarritzat** jotzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste lege-sistema batzuek **inguruabar astungarri** gehigarri gutxi batzuk baino ez dituzte aurreikusten, zigorren maila aldatzen dutenak. ETC-entziklopedia

Era berean, biktimaren adina **inguruabar astungarritzat** jo daiteke. ETC-entziklopedia

---

astunki nola *adlag* astuntasunez.

Abere nekatuaren gorpua **astunki** abaildu zen, burua zulatu zion balak tona bat pisatuko balu bezala. Alberto Ladron Arana

Charlie ni baino lehenago iritsi zen herrixkara eta ziztu bizian zihoan elizako bidezidorrean barrena, baina galtzadarrietan irrist egin zuen eta ziplo erori zen **astunki**. Mirentxu Larrañaga

Pentsamendu gaiztotik begiratzearren, eguneko argitan zutik eta **astunki** ibiltzen irudikatu zuen. Ibon Uribarri

Ez eskuinera ez ezkerrera begiratu gabe, sofismei, erdizkako erantzunei eta iradokizunei jaramonik egin gabe, **astunki** erabiltzen zuen bere arrazoimena, ia basatiki, lainoturik barreiatzen zitzaion arte edo espazio hutsaren eta isiltasunaren ataria zen azken muga logikora iristen zen arte. Jose Morales

Itzal eta oin-hots guztiak atzetik zituen segika, **astunki** aurrera eginez. Lopez de Arana

Bisaia oinazea nuen alderat **astunki** jiratu... eta zapi odoldu hura ikusi nuen oinaren jiran. Joan Mari Irigoien

Aulkian **astunki** eseri eta ezpainei ausiki egin zien, garrasika ez hastearren. Lopez de Arana

Metelok, **astunki** eseria, ez zuen txintik esaten. Juan Garzia

Txakurra lasterka hasten da **astunki** mutilaren atzetik. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **astunki eseri zen** (9)

---

astunkiro 1 *adlag* astunki.

Bonbardaketa hegazkinen prentsak, hiriak **astunkiro** zapaltzen dituenak, herri oso bat, zuku beltz baten gisan, bideetan zehar isurtzera behartzen duenean? Josu Zabaleta

astu *iz* astuna denaren nolakotasuna.

Laburbilduz, gogora ekarri dut aparatu oso bat, bere **astuntasuna** eta, zalantzarik gabe, bere makineria bitxia trabagarriak izango direlarik. Xabier Arregi

Berak ez dauka tradizioaren **astuntasuna** ; eta berak ez du osatzen denborarik gabeko liburutegia, ezta liburutegi guztien lekua ere; baina bera ez da, ezta ere, ahanztura abegitsua, hitz berri guztiei bere askatasunaren jardute-eremua irekitzen diena. Xabier Arregi

Begiak ikusi nizkion, **astuntasuna** sentitzen nuen oinen gainean, baina ez nintzen ukitzen ausartzen. Koro Navarro

Alde horretatik, barizeen sintoma nagusiak hanketako **astuntasuna** , nekea, karranpak, hanturak eta edema arinak izan daitezke. Berria - Gaiak

Iparraldeko herriak, berriz, atmosfera trinkoaren **astuntasunaz** jota, eta airearen erresistentziagatik hezetasunarekin hoztuta, askoz ere motelagoak izaten dira buruz. Santiago Iruretagoiena

Txakur emea etzan egiten da **astuntasunez** , eta begiak ixten ditu. Oskar Arana

Astuntasunaren intentsitatea masaren eta bolumenaren, hau da, pisuaren eta erditik azalera dagoen distantziaren araberakoa denez, zalantzarik gabe ateratzen da ondorioz arintasun egoera dela nagusi planeta horretan. Josu Zabaleta

Gazta parmesano batek usain lurrintsu pittin bat gehitzen zion ore egosien **astuntasun** hari. Karlos Zabala

Astuntasun handia sentitu zuen Fionnek, eta eseri egin behar izan zuen. Joanes Urkixo

Ez nuen jada minik, **astuntasun** -sentsazio bat besterik ez sabelean. Joseba Urteaga

Siesta luzeegia egina banengo bezalako **astuntasunarekin** altxa naiz makalaren orpotik. Koldo Izagirre

---

astuntze *iz* astun edo astunago bihurtze.

Ez du merezi asmo mistiko-psikologikoekin **astuntzea** . Jon Muñoz

---

astur *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi) iz* antzinatean Iberiar penintsulako iparraldean bizi izan zen herri batekoa.

"Orduan, euskal lurraldearen iparraldeko muga Garona ibaia zen; ekialdean, Proventza; Atlantikoa mendebaldean; eta **asturrak** eta Kantabria, hegoaldean". ETC-prentsa

Batetik, Erromako enperadoreak, kristautasuna zabaltzearen xedez, frankoen eta **asturren** erresuma bultzatu zituen. ETC-prentsa

Asturrak iberiar penintsularen ipar-mendebaldea bizilekutzat izan zuten herria izan ziren. ETC-entziklopedia

Toponimo horiek salbu (euskararen bidez ezin argi daitezkeenak) antzinako onomastikaren datuek ikuspegi erabat indoeuroparra erakusten dute, **asturren** lurraldearekin eta orokorrean Hispaniako gainerako inguru zeltekin guztiz lotua. ETC-entziklopedia

Hau gertatzen da **asturrek** sortzen zuten "zythos" edariarekin, seguruena ez zela izango Egiptoko edariaren berdina, eta antza gehiago izango zuela sagardoarekin. ETC-entziklopedia

Berak ematen du herri kantabriar, baskoi, eta **asturra** zaldiz borrokatzeko era ezberdinen berri. ETC-entziklopedia

Bazeuden, adibidez, galaikoak, **asturrak** eta kantabroak iparraldean. ETC-entziklopedia

---

asturiano *iz* asturiarra.

Asturianoak berriz, Kelta leinuetarik jausten dire, leinu gudarietarik. Herria

Julio Caro Barojak dio **asturianoak** zirela soilki, beren tradizio eta ohidurak atxikitzen zituztelarik herrialde kastillanizatu batean. Piarres Aintziart

---

asturiar *izlag/iz* Asturiaskoa, Asturiasi dagokiona; Asturiasko biztanlea.

Bestea, berriz, **asturiarra** zen behintzat, eta pentsatzekoa zen, beraz, egiazki ari zela. Xabier Mendiguren Elizegi

- Meatzari **asturiarrek** maisutasunez jokatu ditek. Lutxo Egia

Hor, Iñigo Argandoñarekin elkartu zen orain dela urte batzuk, eta denboraldi honetan Alberto Andres **asturiarra** ere eurekin egon da taldean. Berria - Kirola

---

asturiera *iz* latinetiko hizkuntza, gaur egun batez ere Asturiasen mintzatzen dena.

Bi hilean behin ateratzen da argitara; galizieraz, **asturieraz** , euskaraz, aragoieraz, okzitanieraz eta katalanez idatzita egoten da. Berria - Euskal Herria

Eta bada beste hizkuntzarik ere Penintsulan, hala nola, **asturiera** . Edorta Jimenez

---

asturu *iz* zoria.

Badirudi hori dela nire **asturua** (eta ez naiz batere kexu horretaz): halakoa naiz, jendeak gauza asko kontatzen dizkion horietakoa. Juan Garzia

Jainkoak emandako **asturua** behar dugu konplitu. Joseba Sarrionandia

Zeregin handiagoak dauzkagu deika; menderatzailearena da gure **asturua** ; behar zaio jarraitu: ausaz bide osoa egin ondoren berriz aurkituko dugu elkar. Jon Muñoz

Lasterka doa interesatzen zaionaren aurretik; ez du bere **asturua** jakiten, igerri egiten du. Jon Muñoz

Badaki beraz bere **asturua** nire eskuetan duela, eta, baldin baliakizun ahaltsu horiek geldiaraziko ez balute, ezinezkoa dena, ez dea begien bistakoa ezen haren jokabidea

agerian jarri izanak eta zegokion zigorra hari betearazteak berehala kenduko liekeela sinesgarritasun oro haren hitzei? Jon Muñoz

Ez dezaket suma bertzeren **asturua** erabakitzea baino deus izugarriagorik, eta berdin izutzen nau juje bat bezain zorrotz eta ama bat bezain ahul okasio honetan jokatzea. Jon Muñoz

Sinets nazazu, bizkonde, emakume bat hein horretaraino sartu delarik oskolean, bere **asturuaren** mende behar da utzi; sekula ez baita huskeria bat baizik izanen. Jon Muñoz

Asturuari astia eman behar zaiolakoan, ez nintzen presatu itzultzeko. Aingeru Epaltza

Nire gutuneko atal hori da orobat Volanges andereñoarentzat prestatua duzun eta nire jokabidearen arabera deliberatuko bide duzun **asturuaz** den bezanbatean zuk erraten didazunari eman diezaiokedan erantzun bakarra. Jon Muñoz

Dela garaiaren zertzelada bereziengatik, dela **asturu** hutsagatik, egundoko jeinu-tropela batu zen mende hasierako Viena hartan, bai idazletzan, bai musikan, bai pinturan. Berria - Kultura

Amodioak zure oinetara narama; eta **asturu** onak zure ondoan jartzen nauelarik, nahiago duzu alditxartze irudi bat egin eta zure adiskideak asaldatu, nire ondoan gelditzera makurtu baino! Jon Muñoz

Oso **asturu** ontzat hartu zituen Don Kijotek irrintzi haiek, eta handik hiruzpalau egunera beste irteera bat egiteko erabakia hartu zuen. Patxi Ezkiaga

Sehiak berriro igan ziren betiere zalapartaka; eta nik, biziki hunkitua oraino, galdegin nien ea zein **asturu** onagatik gertatu ote ziren oraino iratzarririk. Jon Muñoz

Hamaika urtetan hitzik zuzendu ez zion aitaren hiletara joateko asmoarekin, halako **asturu** gaiztoz non berandu heldu baitzen. Harkaitz Cano

Oinazetan, harpeen geriza berreskuratzeko ezgauza, hareatza ezezagunean biluzik, ilargiaren eta eguzkiaren jolasen baitan utzi nuen neure **asturu** gaitza. Juan Garzia

Ordu arte, ez dezaket deus egin, **asturura** ez bada. Jon Muñoz

Aditu ziren, ostera, kexuak eta errezoak, inoiz baino sarriago, ekaitzaren eraginez dena atzeratu behar izan zelarik, askok esan baitzuten ontzia madarikaturik zegoela, edo bestela **asturuak** kontra genituela, eta gure artean itzal gaiztoko baten bat ez ote zegoen zioenik ere bazen. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **nire asturua** (4)
> **bere asturuaren** (3)

---

asturugaitz *izond/iz* zorigaitzezkoa; zoritxarra, ezbeharra.

Metrailadore-deskarga batez akabatu zuen harakin-haur bidutzi batek, Salò-ko errepublikak erreformatorietan erreklutaturiko hamabost urteko morroi **asturugaitz** haietariko batek. Juan Garzia

Gerra bidegabe eta **asturugaitz** batera eramana zuen Italia. Juan Garzia

Txango noragabeok nolabaiteko atseden apurra ematen zidaten burutik kendu ezinik nerabiltzan gogoeta **asturugaitzetatik**. Juan Garzia

Heldu zen azkenik nire zorigaitza ekarri behar zuen eguna; eta ezin sinetsizko **asturugaitzaz**, egintza onest bat egokitu zitzaion zorigaitzari seinale. Jon Muñoz

Bosgarren pisuko leihoa zabaldu zuen Jeannek eta amaitzear zeukan haurdunaldiari erreparatu barik, **asturugaitzak** ahuldutako bere gorputza utzi zuen erortzen. Berria - Kultura

Sehi horrek mezutu digunez, Valmont jaunak kausiturik øøøko herrian **asturugaitzeko** familia bat, zergak ezin ordaindu ahal izateagatik altzariak saldu behar zizkiotena. Jon Muñoz

Asturugaitzekoak gaitun hemen egoteagatik, hemen ez baitugu izango inolako salbaziorik. Juan Garzia

Begira, bestela, honako esaera zahar hauek bildu duten mandio-uzta: Garizuma eta urkabea, **asturugaitzentzat**, zorte onekorik gutxi, beti ere. Pello Zabala

Haatik, zer **asturugaitzez** ez ote zara jadanik zuhaur? Jon Muñoz

---

asturuz *adlag* zoriz.

Edo izan zela **asturuz**, nik erran nizun bezala, edo izan zela nire borondatez, nik erran ez nizun bezala. Jon Muñoz

Harrez gero, Itsasoaren Poeman bainatu naiz // **Asturuz** isuria eta esne argitan argi... Anjel Lertxundi

---

asturuzale *izond* zoriaren zalea.

Asturuzalea den jendeari baizik ez zaizkio zoritxarrak edo ezbeharrak hamahiru zenbakiko egunean gertatzen, nik ez dut sekula jokatu behe mailako jokabide horien arabera, horixe edo antzeko zerbait erantzungo zukeen inork hipotesia iradoki izan balio. Jon Alonso

---

astuzker *iz* astoaren uzkerra.

Gainera, bere gorputzetik usain bizia botatzen duen edozer, panazea, asentsio higuingarria, errosta gogorra edo **astuzker** mingotsa, hauetariko edozein bi hatzen artean estutzen baduzu, ikusiko duzu nolako usaina ateratzen duen. Xabier Amuriza

---

asumitu, asumi(tu), asumitzen du *ad* bere gain hartu.

Horren arabera, bankuek berek bakarrik **asumitu** beharko dituzte berezkoak ez dituzten jardueren gaineko arriskuen ondorioak, eta ezingo diete arrisku horiei aurre egin usadiozko baliabideak erabiliz. Koro Navarro

Esan nahi dut, inpresioa dudala, espainolek gutaz esaten dituzten gezur batzuk sinestu eta **asumitu** ditugula. Berria - Harian

ANAES batzordeak so egin du xeheki eria nola segitua den zerbitzu batetik bestera, operatuak nola **asumituak** diren, bereziki aste burutan, hots zerbitzu ordenarioak hetsiak izaiten diren tenoretan. Herria

Errepresioaren ondorio diren kalte pertsonalak **asumitzea**. Txema Ramirez de la Piscina

Batzuei zein besteei eskerrak, erlatibismoan gaur ja ez dugu mehatxu bat sentitzen, kontzientziaren garapenerako eta gure erabaki pertsonalen erantzukizuna geuk ausarkiago **asumitzeko** eskaintza bat baizik. Joxe Azurmendi

Nire ardura **asumitzen** dut, nahiz eta ez dudan behin ere horrelakorik desiratu. Berria - Kultura

Ekonomilariek errazegi **asumitzen** duten hipotesia da: aurrerakuntza soziala dela hazkunde ekonomikoaren azken ondorioa. Iñaki Heras

Gezurrezko galdu-ustearen dotrinanteak psikologo klinikoaren pare dira, eta terapia bergizarteratzaile bat nahi lukete obratu: galera batek utzitako zulo beltz hondogabea gezur zuri polittez bete, edo, beraien hitzez esanik, errealitatea normaltasunez **asumitzen**, irensten, jaten erakutsi gaixoari edo gaixo-ustekoari, eta, azken buruan, galtzaileari irabazle dela sinetsarazi. Iñaki Segurola

---

asun 1 *iz* basalandarea, hostoak azalmintzan hazkura mingarria eragiten duten ilez beteak dituena*(Urtica dioica).*

Handik laster eliza batean sartu zen eta orotan barreiaturiko intsentsu usainak haurtzarora eroan zuen: negar gutizia piztu zitzaion; maitetsuki nehoiz ez artaturik, **asun** eta sasi arteko lore salbaia zela zirudion. Itxaro Borda

Goiok besarkatu egin ninduen eta braustakoan, lagunen zirkulua zabaldu zelarik, **asun** eta eskonbroen gainera erori nintzen atzeranzka. Joseba Sarrionandia

Zelaia bukatzen zen lekuan, lurrak apur bat beherantz egiten zuen, lehorra eta harritsua bihurtzen zen, eta **asunak** eta sastrakak ageri ziren han eta hemen sakabanaturik. Koro Navarro

Asunak bezalako erredura sor dezakete ukituz gero. J.M. Olaizola "Txiliku"

Laharrek, **asunek** eta elorri abarrek jantziak eta zangoak lahardikatzen zizkioten. Itxaro Borda

Beste belar asko ere zabaltzen da harresian barna, **asunekin** eta mitxoletekin nahasturik, eta beren berdetasunarekin eta beren lore txiki soilen konstelazioekin apaintzen dituzte almenak, gezi-leihoak eta matakanak. Koro Navarro

Bidezidorrean behera hartu zuen gero, ezker-eskuin zeuden ote zuri, garo eta **asunen** sastadei erreparatu gabe. Hasier Etxeberria

Baina sekula jakin ez duzuna da **asunen** gainean jesarri nintzela; soinekoa igo egin zitzaidan, izterrak errerik neuzkan eta, mugimendurik txikiena eginda, gehiago erretzen zizkidaten **asunek**. Monika Etxebarria

Ba **asuna** aski badugu gure etxalde inguruetan eta dailua erabili nahi duen jende gutxi! Itxaro Borda

Laharren ordez zipresak haziko dira, **asunen** ordez mirtoak. Elizen arteko biblia

Noizbehinka jinen zen gasnari gustuaren emateko oihal hura **asunez** ihaurgaitzen zen. Itxaro Borda

Bere kapa beltz luzeaz ikasleen artean ibili zen Snape, **asun** iharrak nola pisatzen eta suge-letaginak nola txikitzen zituzten begira. Iñaki Mendiguren

Zahiarekin orea egingo zitzaien, tartean **asun** -berdura, txiki-txiki eginda nahasturik. Pello Zabala

Goizero bezala, **asun** -ura eman dio amonak Agustini, landarearen erresumina ezin hobea omen da-eta eztarririk zakarrena ere leuntzeko. Anjel Lertxundi

Pozoia, maltzurki ezkutatzen saiatu arren, beti aurkituko duzu **asun** -ardoaren ezkerreko aldean. Iñaki Mendiguren

2 *asun-borta* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Hona Coleophora genero honetako tximeleten beldarrak aurkitzeko egokiera emango dizuten landare batzuk: [...] otondo-belarra, axarioa, **asun-borta**, zaparta-belar zuria, [...]. ETC-prentsa

---

asunbeltz *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* *iz* Urticaceae familiako asun mota *(Urtica urens)*.

Asunbeltza ("Urtica urens" Lineo L.) Urticaceae familiako asuna da, Eurasian jatorria duena. Sendabelar ezaguna da. ETC-entziklopedia

Beldarrak asunez ("Asun handi Urtica dioica", "**Asunbeltz** Urtica urens") elikatzen dira, beste hainbat ninfalidok egin bezala, eta landare baten hosto guztiak jatera irits daitezke. ETC-entziklopedia

---

asunto *iz* gertatzen den edo interesa duen gauza, kontuan hartzen dena, kontua, gorbehera.

Hiri autoaren **asunto** hori gustatuko zaik gehien, ezta? Unai Iturriaga

Ez dut ezer ere jakin gura odol xurgatzearen eta morfina partitzearen **asunto** horrekin. Josu Landa

Tennis Clubeko saunan, toalla zurietan bilduta eta izerdia kopetatik behera ibaika zeriela, erregaluen **asunto** guztia kontatu zion Letiziak. Xabier Mendiguren Elizegi

200 txirrindulari lehian kokapen ona lortzeko, **asunto** txarra. Berria - Kirola

Asunto larrietakoa, hau ere. Pello Zabala

Asuntoa tumore bat da. Harkaitz Cano

Asuntoa da muga bat jartzea, muga bakar bat mundu zabalean, eta bi estatu sortzea, bi estatu bakarrik mundu zabalean, bata kosmopolittentzat eta bestea euskalpolittentzat. Iñaki Segurola

-Zer moduz loftaren **asuntoa**? Harkaitz Cano

Branek, **asuntoa** zail samar ikusirik edo, pare bat bider zaunka egin eta handik arramaka joan zen, hainbeste gorrotatzen zuen doinutik urrun, babesleku baten bila. Joanes Urkixo

Ministroak sistemaren interesak, negozioak, aferak, **asuntoak**, kudeatu behar ditu, hori da bere beste eginkizunetako bat. Jon Alonso

Asuntoak badu bere grazia, umorez hartuz gero. Patxi Iturritegi

Hortaz, hasten zara **asuntoari** bueltak ematen eta egun batean aspertu egiten zara hainbeste teatrokeriarekin. Patxi Iturritegi

Hori beste gauza bat zen, ez zen harritzekoa komisarioak **asuntoari** ogi lizunduaren usaina hartzea. Harkaitz Cano

Berrogeita hamar hektolitro arto eskaini nion **asuntoaz** ahazteko; baina ez zizkidan onartu. Juan Garzia

'Bizitza honetan balio duen gauza bakarra larru **asuntoa** da,' esan zuen. Joseba Sarrionandia

Zure **asuntoen** arduraduna al naiz? Matías Múgica

Amodio-**asuntoengatik** joana nintzela? Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asuntoa da** (3)

---

asuntu ik **asunto**.

---

asurantza **1** iz ipar asegurua.

Asurantzako paperak betetzen ditugularik, haren helbideaz gogoratzen naiz. Ramuntxo Etxeberri

Asurantzak edo **asurantzetako** espertak pasatu dira ere, lehen estimu baten egiteko. Herria

Hots, untsalaz **asurantza** -sariak beharko zirela aurten polliki emendatu, ez balitz preseski errekontru gutiago izan. Herria

Erien **asurantza** sistema ez da batere berdina hegoaldean, han dena eskualdeka antolatua da. Herria

Erien **Asurantza** Kutxak segitzen du berrantolatzen, publikoa errezebitzen duten zerbitzuei lehentasuna emanez. Herria

Zartatze hori Baiona eta Iparraldeko **asurantza** kutxaren egoitzan, errekontruz itxura guzien arabera, ur beroaren muntaduretan zerbait makurturik naski eta gasa han nunbait metaturik. Herria

Coface hori **asurantza** etxe bat da. Herria

Elkarte hunek eginen du AGF **asurantza** etxearekin biltzarre bat helduden ortzegun aratsaldean azaroaren 8 an aratsaldeko 3 orenetan. Herria

Asurantza kontratuen erreberritzea herriko langileentzat. Herria

Zortzi haurreko familian jaioa Jakes seme zaharrena, **Asurantzetan** lan egiten zuen herriko auzapezak Uztaritzeko seminario berrira igorri zuen eskolatzera, geroago beste bost semeak igorriko zituen bezala. Herria

2 *asurantza hartu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Azkenik, gobernuaren oniritzia duen zerrenda batetik enpresa bat hautatu beharko du etorkinak osasun **asurantza hartzeko**. ETC-prentsa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asurantza etxe** (3); **asurantza etxeak** (3); **asurantza kutxaren** (3); **erien asurantza kutxa** (6); **erien asurantza kutxak** (7)

asuratu, asura, asuratzen *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)* du *ad* aseguratu.

Zango edo hanka bakoitza, ehun milioientzat **asuratua** daukaten futbolari posmodernoekin! ETC-literatura, saiakera

Jendeak **asuratu** nahi ditut, zernahitarako. ETC-literatura, saiakera

Uztailaren 8-ko sutea: **asuratzaileek** beranta . ETC-prentsa

Eta asurantzarik ezin aipa ere zenbaiti, ez baitira denak arrazoinean **asuratuak** hemen bezala, salbu berengain segurean jarriak direnak. ETC-prentsa

Ainitz urtez Groupama kesarentzat otoak **asuratu** ditu. ETC-prentsa

Bestalde, untsa **asuratua** izan. ETC-prentsa

Hots, bakotxak bere burua pribatuekin **asuratuz** , badira han ongi heltzen direnak bainan ere 32 miliun herritar, behardunetarik, deus asurantzarik gabe direnak. ETC-prentsa

Jean-Jacques Lasserre Bidaxuneko (Baxenabarre) kontseilari nagusiak salatu zuen Laborantzako Zorigaitz egoerak bakarrik ezin **asuratuak** diren elementuentzat duela balio. ETC-prentsa

---

asurti *izond ipar* egokia.

Hiztegi berezi bat, bi mila hitzekin nunbait han, badu ere pikoan ezarria, herriko etxeentzat guziz **asurtia** . Herria

Tokia dela ezinago **asurtia** , Ezpeleta hain dela herri pollit eta maitagarria. Herria

Tokia ere guziz **asurtia** hautatu du, Itsasokoa, Hegokoa eta holako batzu kokatuak izan ziren egoitza xaharra, Urdazuri bazterrean. Herria

Toki **asurtia** kontzertu batzuentzat bainan ere musika ikastaldi, grabaketa eta holakoentzat. Herria

Hilabetearentzat baginuen euskaraz beste izen bat, untsa **asurtia** gainerat, negila edo neguila, neguan sartzeko hilabetea delakotz alabainan. Herria

Bulego berriak biziki **asurtiak** dira eta toki arraroan, portu bazterrean, denen bixtan, herriaren historiari aspaldian josia dagon etxe eder batean. Herria

Hitz hori hartzen dugula guk ere **asurtiago** baten eskasean. Herria

Horiek hola, "etxe urdina" izen hori litakeenetz **asurtienik** alderdi berriarentzat, hori besterik da! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ezinago asurtia** (3); **guziz asurtia** (3); **toki asurtia** (3)
> **asurtiago baten** (3)
> **biziki asurtiak** (3)
> **aski toki asurtian** (3)

---

aszensore ik **igogailu**.

---

aszesi *iz* erlijioaz mintzatuz, espirituaren askapenera eta bertutea lortzera bideratutako jarduna.

Aszesi handiegia eskatzen zien lantegi hark, nekosoegia zen testu haietan barrena sartzea, ezer ulertu baino lehen hartzen zituen asperrak, higuinak. Iñaki Iñurrieta

Irudi honek gizabanako **aszesi** eta santutasunerako eredutzat hartzen zuen hura, erabat aparteko eta, beraz, imitaezintzat. Askoren artean

Christopher Isherwooden biografia bidaiez eta topaketez beteta dago zein baino zein topaketa ohiz kanpokoagoz, era guztietako ekimenez eta kupidarik gabeko **aszesi** premia ezin asetuzko batez; jateko, janzteko edo jarrera bitxiarekin bezala, nahitaez argitasuna jasaten deneko leku urrunetarako bidaiarekin lotutako **aszesi** batez. Berria - Kultura

---

aszeta *iz* izpirituaren betetasuna lortzeko gorputza hilduratzen duen pertsona.

Handik aurrera bakarrik egon zen Taibele, bi bider abandonaturik, **aszeta** batek lehenbizi eta deabru batek gero. Koro Navarro

Erlijioari begiratzen badiogu ere, praktikotasunetik hain urruti dagoen alor horri, euskal literaturak **aszeta** asko eman ditu -onbiderako praktika eta ekintza aldarrikatzen dutenak, alegia-, baina mistikorik ez, beharbada mistikak bere-berea duen kontenplazioa ez datorrelako bat gure izaerarekin. Anjel Lertxundi

Elizgizon odolzaleak, Clisifo **aszeta** ospetsuak ezin hazia isuri gabe eutsi estatua eder baten aurrean. Markos Zapiain

Aszeta errukarriak bizitzeko aski zuen jaunak egunero ematen ziona, hau da, hiru ogi kozkor, gurin doi bat eta eztia. Patxi Zubizarreta

Apenas erreparatu omen zion gizonaren gorpuzkera zimel eta segailari (komisarioak behin eta berriz eskatzen dizkion zehaztapenei erantzunez, **"aszeta** baten gorpuzkera" zuela dio Monikak, **"aszeta** mundutar batena"), ez omen zuen erakarri iragartzen zuen misterioak. Joxean Agirre

Ordu arte lege doktoreak eta **aszetak** besterik ez ziren bere gelara sartu. Patxi Zubizarreta

Joan Limosnariaren biografiak iradoki lezake bizantziarrek, premia izan zutenean, zergatik jo zuten, pentsatu gabe, laguntza eta kontsolamendu bila **aszetarengana** , haren sinpatia eta laguntza izateko erabateko ziurtasuna baitzuten. Iñaki Mendiguren

Malkoen dohainik gabe, atleta (--= **aszeta**) hauetako inork ezin uki jainkoari orpoa. Patziku Perurena

---

aszetika *iz* aszetismoa.

Horrek ez du ukatzen, baiesten baizik, nahi eta gura guztien jaun gidari gogoa izan dadin, **aszetika** eta diziplina behar-beharrezkoak direnik. Jenaro Garate

Baina segituan kontrarreforma bultzatu zuen Eliza katolikoak, eta euskal literatura **aszetika** eta pragmatika erlijioso katolikoko liburuak egitera bideratu zen. Berria - Harian

Aszetikaren eta otoitzaren zale porrokatuak zer esan ez dakitela geratzen dira Frantziskok eta Jainkoaren bere juglar-taldetxoak bizi duten askatasunaren aurrean. Askoren artean

Atal honetan agertzen den jarrera ezkorra emakumeenganako harremanetan -ohikoa bestalde Erdi Aroko **aszetikan** - ez dator bat beste testigantza askorekin. Askoren artean

Aszetikaz , liturgiaz eta kanonez zenbait iruzkin. Piarres Xarriton

Donostiako gauak, Apollinaireren esentzia bioleten bila jarduten zuten ehunka gazte, beren guruinen poderioz eta katixima eta **aszetikazko** idatzietatik edanez, miraria gauzatzera deituak. Iñaki Iñurrieta

---

aszetiko *izond* aszetari edo aszetismoari dagokiona.

Elkarrizketa gehienetan, hegazkinlariek berebiziko garrantzia ematen zioten prestakuntza fisikoari; eta haien argazkietan bizimodu **aszetikoaren** markak agertzen ziren: ez zegoen haien aurpegi zailduari begiratu besterik. Anjel Lertxundi

Idazkerak galdu egin du Lehen Bizitza-n zuen borobiltasuna, eta bigarren partean bereziki tankera **aszetiko** eta exortatiboa hartu du. Askoren artean

Halako ukitu **aszetiko** bat zuen aurpegian. Iñaki Iñurrieta

Izan ere, orduan "heziketa sexuala" deitzen zena, burgesiak bere moral **aszetiko** eta puritanoa ezartzeko erabiltzen zuen arma bat besterik ez zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Batzuetan esan izan da Ekialdeko Erromaren ideal **aszetikoa** bere garaiko mundutik erretiratze antzua zela. Iñaki Mendiguren

Antzinako tradizio **aszetikoa** : anakoreta siriarren artean, "neurritasunaren aurkako bekatutzat jotzen zen janari egosiak jatea", S. Jeronimoren esanetan. Askoren artean

Bertute **aszetikoak** eta hauen saria. Askoren artean

Itzuli naiz logelara leku **aszetiko** hau laket zait. Piarres Aintziart

Ideia hau, Erdi Aroko literatura **aszetikoan** erruz erabilia, San Gregorio Handiaren testu batetik dator: etsai biluziekin (espiritu gaiztoekin) biluzik borrokatu behar da; jantziak dituenari nondik heldu izango bailukete, lurreratzeko. Askoren artean

Eta gerlaren erdian, gerlaren medioz nintzen artetan kasik uros, lagunen erdian, haien idurikoa nintzela, gizon gizonen artean, oihal etxearen goxotasun **aszetikoan** sentimentu arrunt eta sakonekin adiskidantzan sartua jende normalarekin. Piarres Aintziart

Hexagonoetara oldarrean sartu, baimen-agiri ez beti faltsuak erakutsi, gogo txarrez liburuki bat orri--pasa eskuartean erabili, eta apal osoak kondenatzen zituzten: haien suhartasun garbikoi, **aszetikoari** , zor zaio milioika liburu hain zoroki galdu izana. Juan Garzia

Horrek guztiak -zorroztasun **aszetikoenari** ere erantsi diogun pragmatismoak- "errebelde dezente eta fariseu dezente" sortu du gurean. Anjel Lertxundi

Idazkera trinkoa, guztiz soildua, elipsiz betea, **aszetikoa** , ez dakit zergatik, baina moralisten artean estimazio berezia izan ohi duena. Josu Zabaleta

Deigarria da koloreen aukeraketa **aszetikoa** zuria eta beltza besterik ez dira erabiltzen baina argien diseinu tenebrista, gune argiak oso argi eta ilunak erabat ilun uzten dituena, guztiz bat dator esandako estetika barrokoarekin. Berria - Kultura

---

aszetismo *iz* aszeta bizitzaren dokrina eta praktika.

Aszetismoa , puritanismoa, lana, nekea, sakrifizioa eta horrelako baloreetan oinarritutako moral berri bat proposatuko du. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Atsegina, irrika, zirrara, sexua, kontrolatu egin behar dira, eta lana, sakrifizioa, **aszetismoa** , diziplina, etekina eta horrelako balioen menpe daude. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Askotariko mitologia dibergenteak irazkitu zituzten histrioiek; batzuek **aszetismoa** predikatu zuten, beste batzuek lizentzia, denek nahasmena. Juan Garzia

Ortegarentzat ere kakoa mendebala kristautu izatean datza, hots, **aszetismo** kristaua germano ertarotarren oldarrari nagusitu zitzaionez gero hedatu den moral gelbera, ahul, melengan. Joxe Azurmendi

Moral burgesaren **aszetismo** santujaleari aurre egiteko asmoz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Axularren Gero (1643) ez da pentsamendu originala (batzuek itzulpen soil bat baino ez dela diote) baina aurreko mistizismo iluminatuari **aszetismoarekin** erantzun nahi izan zion. Askoren artean

Argi zagok munduari uko egin, eta **aszetismoari** lotu hatzaiola. Patxi Zubizarreta

Bere **aszetismoak** jainkoturik bezala sentitzen zen orain, libre; epikuroarrek eta Pirronen jarraitzaileek kantatzen duten ataraxia-egoera hori begiztatzen hasia zen. Josu Zabaleta

Lehenengo bizantziar **aszetismoaren** ezaugarri nabarmenetako bat gizarte-zuzentasunaren eta behartsu eta zapalduen alde egiteko zaletasun sutsua da Iñaki Mendiguren

---

aszitis *(corpusean ez dago; ETCn **56** agerraldi) iz* peritoneo barrunbeko serositate pilaketagatik sabelean gertatzen den hidropesia. gertatzen den likido pilaketa.

Aszitisa : urdailean gernu-errententzioa. ETC-entziklopedia

Aszitisa : sabelean likido kantitate ezohikoa metatzeari deritzo. ETC-entziklopedia

Giltzurrun gutxiegitasunarekin batera azaltzen diren sintomen artean ikterizia, **aszitisa** , entzefalopatia hepatikoa eta osasun egoeraren narriadura orokorra daude. ETC-entziklopedia

Gaixotasun honen mota bat, peritonitis bakteriano espontaneoa edo primarioa da, eta **aszitisaren** ondorioz sortzen da. **Aszitisa** , abdomen pareta eta organo abdominalen artean ematen den isurkari serosoaren pilaketa da eta orokorrean, gaixotasun hepatikoengatik sortu egiten da. ETC-entziklopedia

Ondorioz, gernuan proteinaren maila altuak (proteinuria) 3.5 gramo baino gehiago eguneko, odoleko proteina maila baxuak (hipoproteinemia edo hipoalbuminemia) eta **aszitisa** ager daiteke. ETC-entziklopedia

- Morfologia eta inguruak (diastasia, bultomak, **aszitisa** ...). ETC-zientzia, zuzenbidea

Hedapen horren larritasuna aldakorra izan daiteke, edema arinetik hasi eta **aszitiseraino** (sindrome nefrotiko larriraino). ETC-zientzia, zuzenbidea

Gibelerako txarrak diren substantziak hartuz gero, gibeleko gaixotasun kronikoan, ikterizia duten pazienteetan, **aszitisa** eta gibeleko ebakuntzetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondorioz, edemak, **aszitisa** , bihotz-gutxiegitasuna eta abar agertzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

at *(ETCn **24.487** agerraldi)* **1** *postpos* (-tik atzizkiaren eskuinean) kanpo.

Fede itsua denez, kontra-argudioen argiaren eraginpetik **at** dago... adimenaren gaitz bat da; beraz, heriotza beste tratamenturik ez du. Xabier Olarra

Ohar gaitezen legaltasun-irizpidearen benetako gauzatzea, azken batean, berarengandik **at** dauden baldintzen gorabeheran dagoela. Juan Martin Elexpuru

Funtzionarioa kartzelatik **at** bezala bizi da, norbaitek han jarri eta non dagoen jakingo ez balu bezala. Lander Garro

Semaforoa atzean uztean frantses-hiztunen auzotik **at** gaude. Edorta Jimenez

Mundu errealean, telebistatik **at** , aurrez aurre esan nahi dut, mundu errealean hildako bat ikusten duzunean, ordea, ez dago zalantza izpirik ere benetakotasunaz. Sonia Gonzalez

Bigarren mailatik **at** utzi ditu Belgikako Flanders eta Poloniako Atlas Polsat taldeak . Berria - Kirola

Miarritzek etxetik **at** hobetu egin beharko du Top 16 Ligako finalerdietara sartzeko; urte hastapen gogorra ukanen du Heineken Koparekin. Berria - Kirola

Berria izugarri azkar hedatu zen, Internet eta kolpisten kontrolpetik **at** zeuden irrati komunitario apurrei esker. Txema Ramirez de la Piscina

Laino batean egin zuten Ronda kaletik lokalerainokoa, egoera transzendental batean, mundutik **at** , Olinpoan. Unai Iturriaga

Begi bistara, anaia nagusi Felixek, lehiaketatik **at** , buru bat ateratzen die beste guztiei. Itziar Otegi

Horregatik egon da senarra aurkitzera behartuta, osaba Dino izeneko bat (egiaz, Denes); lehengo astetik hura ere lan eremu batean da, etxetik **at** . Urtzi Urrutikoetxea

Gure lagun euskaldunek lana egiten dute gogotik eta unibertsitate girotik **at** daude. Pako Aristi

Erantzunak ni baitatik **at** utzi ninduen, uste bainuen komeni ez zitzaidana ontziko gizon morko eta basekin ibiltzea zela, haien alboan eta haien gai lizunak aditurik galdu egin nintekeelakoan edo. Edorta Jimenez

Gure jaioterria ez baizik eta Mississippi urruneko lurralderen batek behar luke derrigor marko horretatik **at** . Harkaitz Cano

Iceberg baten tankerakoa zen haien maitasuna, kanpotik ikusten zenaren aldean, hondorago sustraitzen baitzen sentitzen zutena, begiradetatik **at** , inork antzeman zezakeen eremu ezkutuko batean. Aritz Gorrotxategi

Kant-en inperatibotik ere **at** dago, honek gomenda bailezake noiz den egokia barkatzea eta noiz ez. Joseba Zulaika

Bazirudien borondatea elikatzen zuela, indarra eta iraunkortasuna ematen zuen, giharrak eta gorputz adarrak gizakien neurri orotatik **at** menderatuz. Agustin Otsoa

Etxetik **at** ikusi zuenean bentariak, ongi itxi nahi izan zuen atea, baina ez zioten utzi mantatzaileek; izan ere, Mahai-Inguruko zaldun ibiltarietakoa egia-egiatan izan bazen ere, jende haiek ez zuten harengatik bi sosik ere emango. Patxi Ezkiaga

Agian Frantxua istorio zikin horietarik **at** bizi zen... Itxaro Borda

Bainillarekin ere gauza bera egin nahi izan zen baina, Amerikako oihan tropikaletatik **at**, landarea loratzen zen baina ez zuen lekarik ematen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jakina, guztia endekatu egin zen, eta aurrikusitako bideetatik **at** joan zen, iparramerikarrei maiz gertatzen zaien bezala, bestalde". Iban Zaldua

Autore batzuek iragarri, espero edo desio dutenez, etorkizun hurbileko sukaldean gure eskuak eta kontsumitu behar ditugun produktuak deskontaminatzeko berariazko ontzia izango dugu, ohiko harraskatik **at**. Edorta Agirre

Haien atzetik, azkenean, korapilo bat eginda amildu ginen sofa gainera, zoramenaren menpe plazerraren leizera hondoratzera gindoazela, mundu zital honetatik **at**. Migel Angel Mintegi

Ez ur sakonen hondoetatik **at** behintzat. Harkaitz Cano

Azken batean, nornahi emakume delarik ere, hemendik **at** dago, telefono-hariaren beste aldean, eta ni hemen nago. Mirentxu Larrañaga

Horretan, ez nintzen bidetik **at** aritu: Japonian integratu nahi duen atzerritar orok Inperioko usadioen errespetua bihurtzen du bere ohorearen giltzarri. Joxan Elosegi

Maruja ere ez dago geldi, baina erritmo sekretu pausatuagoan ari da, zalapartatik **at** bezala. Iñaki Iñurrieta

Ezkontzatik **at** sorturiko seme-alaben egoera zehaztugabea da, neurri handiagoarekin zein txikiagoarekin. Andres Urrutia

Inolako kariaz ez zen onartzen libururik eramatea lantegitik **at**: liburuzainaren - Paglietta andereñoaren - adostasunarekin baino ezin ziren kontsultatu. Juan Garzia

2 (-z atzizkiaren eskuinean)

Naturaz **at** dabil, hortaz: ukitu gabe begiratzen du, porroia lako tramankulu artifizialak erabiltzen ditu (edo amodio-tramankulu naturalak ebakitzen), espermatozoideak ondorio biologiko gabeko guneei oparitzen dizkie, bizitza konplikatzen du naturaren aginduei ixkin egitearren, guraria gauzatzeko aukera airean zintzilik uzten du ("Urak dakarrena urak [...] Xabier Mendiguren Elizegi

Baina, eta telebistaren begiaz **at** gelditzen zena? Karlos Linazasoro

Hori da bizitzan aurki daitekeen Hirutasun Santu bakarra: ez alferrik galtzea, zerbaitetan ona izatea eta (amarenaz **at**) norbaiten edo norbaitzuen maitasuna jasotzea. Pako Aristi

Kristauaz **at** erabakitzen ei da kristauaren zoria; honek ez du fedea bere baitan piztu eta itxaron beste zereginik. Markos Zapiain

Etxeko bizitzaz **at** hartzen du garrantzia Marie-Émilieren ibilerak mundu honetan: emakumeen eta haurren eskubideen defendatzaile, gizakien eskubideen aldeko... J.M. Olaizola "Txiliku"

3 *guztiz at*

Ez dut esan nahi badela monarkiaren bat ekonomiazko merkataritzatik **guztiz at** dagoena, baizik eta monarkia berez ez dela horretara hain emana. Iñaki Iñurrieta

Ezkontzarekin batera utzi egin zuen lamaliako etxe zaharra, Hilmiako jauregi hartara aldatzeko, eta semeak merkatarien mundutik **guztiz at** zegoen giro hartan hezi zituen, nolabait ere aitaren salerosketa mundua arbuiaraziz. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adigaitik at (5); **ahalgarriaren alorretik at** (3); **ahalmenetik at** (4); **alor honetatik at** (3); **alorretik at** (8); **arriskutik at** (4); **at ariko** (6); **at ariko dira** (4); **at aritu** (4); **at bizi** (9); **at da** (4); **at dago** (20); **at dagoela** (8); **at dagoen** (27); **at dagoena** (5); **at datzan** (4); **at daude** (8); **at daudela** (5); **at dauden** (20); **at diren** (3); **at egiten** (6); **at egon** (13); **at egon arren** (3); **at egon dira** (3); **at egongo** (4); **at egoteko** (4); **at eman** (4); **at existitzen** (5); **at ez** (16); **at ez geratzeko** (5); **at ezarri** (3); **at ezer** (6); **at gelditu** (19); **at geldituko** (5); **at gelditzea** (5); **at gelditzeko** (3); **at gelditzen** (9); **at gera** (5); **at geratu** (74); **at geratu ondoren** (5); **at geratu ostean** (3); **at geratuko** (10); **at geratzea** (11); **at geratzeko** (5); **at geratzen** (22); **at ikusi** (4); **at ikusten** (5); **at izan** (7); **at izatea** (3); **at jarri** (3); **at jokatu** (6); **at jokaturiko** (3); **at jokatzen** (3); **at mantendu** (3); **at mantentzeko** (3); **at nengoen** (5); **at utz** (4); **at utzi** (63); **at utzi nahi** (3); **at uztea** (7); **at uzteko** (11); **at uzten** (10); **at zegoela** (4); **at zegoelako** (3); **at zegoen** (4); **at zeuden** (5); **atenastik at** (3); **baitatik at** (4); **beragandik at** (3); **bere baitatik at** (3); **bere onetik at** (3); **beretik at** (5); **berritik at** (3); **bertatik at** (6); **besteetatik at** (3); **bidetik at** (4); **borondatetik at** (4); **bozetatik at** (3); **burua taldetik at** (3); **deialdietatik at** (6); **deialditik at** (10); **deialditik at geratu** (4); **deialditik at utzi** (3); **denboratik at** (8); **eguzki sistematik at** (4); **erabat at** (6); **erabileratik at** (7); **erabileratik at uzteko** (4); **eraginetik at** (3); **erakundeetatik at** (4); **errealitatetik at** (5); **erreformatik at** (4); **eskumenetik at** (6); **espainiako kopatik at** (3); **espainiatik at** (3); **esparrutik at** (3); **esperientziatik at** (4); **etxetik at** (153); **etxetik at ariko** (5); **etxetik at irabazi** (5); **etxetik at irabaztea** (3); **etxetik at irabazteko** (3); **etxetik at jokatu** (5); **etxetik at jokaturiko** (3); **etxetik at jokatzen** (3); **europatik at** (4); **euskal herritik at** (9); **eztabaidatik at** (5); **final laurdenetatik at** (9); **finalerdietatik at** (7); **finaletik at** (26); **finaletik at geratu** (7); **gizartetik at** (5); **gobernutik at** (10); **gogotik at** (3); **gugandik at** (25); **guztietatik at** (3); **guztiz at** (5); **hartatik at** (6); **hauetatik at** (4); **hemendik at** (9); **herritik at** (11); **honetatik at** (15); **horietatik at** (8); **horretatik at** (10); **ilaratik at** (5); **irabazteko lehiatik at** (6); **irismenetik at** (3); **itunetik at** (5); **jaitsiera postuetatik at** (3); **kargutik at** (3); **konstituziotik at** (3); **kontroletik at** (6); **kontrolpetik at** (5); **kopatik at** (21); **kopatik at geratu** (7); **kopatik at utzi** (5); **legebiltzarretik at** (9); **legetik at** (5); **lehiaketatik at** (14); **lehiaketatik at utzi** (4); **lehiatik at** (24); **lehiatik at geratu** (8); **ligatik at** (16); **ligatik at geratu** (5); **ligatik at utzi** (3); **mailatik at** (4); **merkatutik at** (3); **mugetatik at** (11); **mundutik at** (23); **mundutik at bizi** (3); **nigandik at** (8); **onetik at** (4); **orotatik at** (9); **partidatik at** (6); **politikatik at** (5); **postuetatik at** (10); **postuetatik at geratzeko** (3); **prozesutik at** (7); **sistematik at** (10); **taldetik at** (10); **txapeldunen ligatik at** (11); **txapelketatik at** (13); **txapelketatik at geratu** (6); **txapelketatik at utzi** (4)

zelaietatik at (8); **zelaitik at** (11); **zerrendatik at** (9); **zerrendatik at geratu** (4); **zurrunbilotik at** (3)

---

atabaka *iz* kutxa, otarrea.

Orduan, Joiada apaizak **atabaka** bat hartu, gainean zuloa egin eta aldare ondoan ezarri zuen, Jaunaren etxera sartu eta eskuinaldean. Elizen arteko biblia

Orduan, erregeak **atabaka** bat eginarazi eta kanpoan, Jaunaren etxeko atean, ipintzeko agindu zuen. Elizen arteko biblia

Etxe honetatik joaten dira, goizoro, posta etxera gutunen bila, hiru bat laurden lekoako bidea eginez: baliatzen dute xede horretarako **atabaka** baten gisara estaliriko kutxa bat, zeinaren giltza bat postako nagusiak baitu eta Rosemonde andreak bertzea. Jon Muñoz

Atezain zeuden apaizek **atabaka** hartara botatzen zuten jendeak Jaunaren etxera ekarritako diru guztia. Elizen arteko biblia

Agintariek eta herri osoak, pozez beterik, beren dirua ekarri eta **atabaka** betetzeraino eman zuten. Elizen arteko biblia

"PSOEren O hizkiarekin gobernatuko dut", adierazi zuen, langileen artean botoen **atabaka** pasatzen zuen bitartean. Berria - Euskal Herria

Atabakan diru asko zegoela ikustean, erregearen idazkaria eta apaiz nagusia etorri ohi ziren Jaunaren etxean bilduriko dirua zenbatzera. Elizen arteko biblia

---

atabal 1 *iz* bi zotzez jotzen den danbor estua.

Gazte aldra asko joan ohi dira bidean soinu joten, dultzaina, pandero, **atabal**, hauspo soinu eta honakoekaz, ikotika eta ujuka zoro-zororik." Mutil espainol batek frantziarren kontra egindako gerra heroikoa Kataluniako atxarteetan, **atabal** batekin, **atabal** eta makilatxo batekin bakar-bakarrik. Koldo Izagirre

Azkenean **atabal** handiaren inguruan kantuz eta jauzteka ari diren gazteen eskuen hauspoak eta bestaldetik ozen den herriaren bozkario miragarriak, ez diote nehon nehori kalterik egiten. Piarres Xarriton

Andonik berdin jotzen zuen txistua, **atabala**, eskusoinua... Koldo Izagirre

Gau-pasa egiten ari duk errege, topaka, parrandan jo eta su, dantza-zalaparta bizian; eta Rin-eko ardotik tragoa jotzen duen aldiro, **atabal**-turutak arrantzaka hasten dituk zurrutaldiari aupaka. Juan Garzia

Erleak erlauntzara biltzeko, **atabala** edo antzeko zerbait jotzen zaie. Anjel Lertxundi

Hitzaldiak hasi ziren, txapel gorri bat, preso egondako bat, neskato ezpaingorri bat pasatu ziren udaletxeko balkoitik, txaloka jardun zen jendea, eta gero danboliteroak **atabala** jo zuen tan tantan tan tan. Joseba Sarrionandia

Aurrekoan, Maria gure etxera etorri zenean, familia baserritik kalera gurdi gainean jaisten zela jardun zitzaigun kontatzen: Jexuxek soinua eta Mariak panderoa, besteren batek **atabala**, eta tartean Ama.Soldadurik gabe, **atabala** gerritik zintzilik eta poltsa bizkarrean zuela amesten zuen etxerako itzulera. Xabier Etxabe

Atabalak eta tronpetak jotzen hasi dira, eta itxaferoak goraka abiatu. Txillardegi

Han ibiltzen ginen gero kalean behera gure uniformeekin, gure turuta eta **atabalekin**. Joseba Sarrionandia

Juamanuel Garaikoa izendatu zuten fletxaetapelaioen buruzagia eta egurrezko fusilekin eta **atabalekin** desfilatzen jarraituko genuen. Joseba Sarrionandia

Jendea biribilean jarri da deabruak hobeto ikusteko: bolingozo eta **atabalen** musika suzirien zarataz lagunduta entzuten da, deabruak zirkuluak eratuz irristatzen diren bitartean. Antton Olano

Atabalaren hotsa entzun orduko, lore ederra utzi eta erlauntzara itzuliko da, **atabalaren** burrunbak trumoia oroitarazten baitio. Anjel Lertxundi

Kanta eta oihu haiekin batera, txistu baten soinua eta **atabalaren** danbadak nahastu ziren. Joan Mari Irigoien

Aita ordurako atarian dantzan hasia zela, **atabalaren** kolpeak eta edandako baxoerdiak poztuta. Xabier Etxabe

Danboliteroak isilune bat egin zuen, gero isiltasuna **atabal** hotsez urratu, tan tan tatan, eta jarraitu zuen abisua emanez, aurrerantzean greba egitea, propaganda egitea, aginduak ez obeditzea edonor fusilatzeko arrazoia eta kausa izango zela. Joseba Sarrionandia

Eta otso-belarraren lekak txistu joka ari dira, aleak **atabal** joka. Felipe Juaristi

Berehala hasi ziren txirimi-**atabalak** belarrien alaigarri; kaletik harantz zetozen korrikalariak ziren, zirudienez, beren txilin-soinuei eraginez, drapa-drapa eta hankak arin. Patxi Ezkiaga

2 irud/hed

Euriaren **atabal** kolpeak aditzen ziren leihoetan, ardien marrakak, antzaren karranka. Itxaro Borda

Lurrak deabruen **atabal** zaharra dirudi. Patziku Perurena

3 ***atabal jotzaile*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***4*** *agerraldi)*

Gaurtik etzi arte, Nafarroako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Lapurdiko eta Baxenabarreko ehun bat gaitero eta **atabal jotzaile** elkartuko dira Baionan. ETC-prentsa

Hara etortzen zitzaizkigun jaun auzapeza, herriko hautetsiak eta klika edo banda osatzen zuten mutiko gazte turuta eta **atabal jotzaileak**. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atabal musikategian** (4)
> **atabala jo** (3)

---

atabalari *iz* Atabal-jotzailea.

Hauek bazeramatzaten aurretik txistulariak, **atabalariak**, eta guzti. Txillardegi

---

atabalatu, atabala(tu), atabalatzen **1** du *ad* danbor hotsaren antzekoa atera.

Denak gelatik atera eta handik segundo gutxira, gizaseme gizen batek ateko egurrezko markoa hatz koskorrekin emandako kolpe leun pare batez **atabalatu** zuen. Harkaitz Cano

Txuspok zuzen-zuzenean jo du pianorantz, eta triskatu antzean duen egurrezko tapakia **atabalatzen** hasi da. Harkaitz Cano

Bost xerra zekor-zangar jarri zituen mahai gainean Ruche jaunak, hezur eta guztikoak, muin sendo eta mardulez bete-beteak; bitartean, kanpoan, euriak **atabalatzen** zituen amerikar erako sukaldeko leihoak. Jon Muñoz

---

atabiko *izond* iraganari dagokiona.

Izterren dilatazio hezeari so gelditu nintzen, halako miresmen **atabiko** batez. Karlos Linazasoro

Ikasle gehienak irrikatan zeuden disekzio-salara iritsi eta eskalpeloa gorpuetan sartzeko, ankerkeria primitibozko hondar **atabiko** bat geratuko balitzaie bezala. Josu Zabaleta

Arratsaldean, komisaldegiko atean Kristina agurtuta, sen **atabiko** batek amaren gonapera eginarazi zidan ihes. Aingeru Epaltza

Prentsak, denbora tarte honetan, ikasiko du hemendik "demagun" horretara artekoan egungo hainbat ohitura **atabiko** bazter uzten? Iñigo Aranbarri

Neure zintzotasun **atabikoa** probatuko dut. Lopez de Arana

Elbarri gehientsuenek beren aulkitxoan hiltzeko desio ia **atabikoa** izaten dute. Karlos Linazasoro

Bhagabad Gita indiarren liburu sakratua zen, eta Einsteinek, egia zen, oso gogokoa zuen orriotan sumatzen zuen espiritualtasun gori, hunkigarri eta **atabikoa**. Fernando Morillo

Musika hura argizko ur-jauzi baten moduan erori zitzaien gainera zientzialari guztiei, hitzik gabe, aiene **atabikoa** bailitzan. Fernando Morillo

Une batez, gizakiarenganako beldur **atabikoak** menderatua, piztiak atzera egin zuen, bere anaiei deialdi luzea zuzenduz; eta haiek goseti erantzun zuten, harik eta gorputz makurtu eta masailezur lerdetsuzko uztai grisa agurearen inguruan itxi zen arte. Patxi Zubizarreta

Seguru asko sen **atabikoei** jarraituz gizonok taberna aldera jo genuen eta neskek dantzara, baina Pablo, nire ustez oraindik sen **atabikoago** bati jarraituz, dantzara joan zen, neska artera. Joxean Sagaztizabal

Gòi bat mutila, eta gôià bat neska, terminologia **atabikoaren** arabera: eta ezkon zitezkeen. Juan Garzia

---

atabismo *iz* iraganari dagozkien ideien eta aritzeko eren multzoa.

Zuek barre dagizue, jaunak, baina egia diotsuet, bidaiatzea **atabismoa** da, eta etorriko da eguna, batere harat-honat gehiagorik beharko ez dena, Joxe Austin Arrieta

---

ataburu ik **ateburu**.

---

ataga *iz* ate haga.

Eta berehala tronpeta guztiek batera jo zuten eta Elessar Erregea **atagarantz** aurreratu zen, eta Hurin Giltzen Zaindariak jaso egin zuen **ataga**; arpa eta biola eta txilibisten musika eta ahots argien kantuaren erdian, Erregeak lorez estalitako kaleak zeharkatu zituen, eta gotorlekura heldu eta sartu egin zen. Agustin Otsoa

Umeteria hasi da **ataga** arakatzen, doi-doi jotzen, hasieran zuhur, gero zakar, eskalapoi-kolpeka eta, itxaroteaz nazkatuta, alde egin dute gogo txarrez, begiak Lepic andrea zelatan dagoen leihoaren aldera jiratuta oraindik. Itziar Otegi

Sansom, ordea, gauerdiraino baizik ez zen egon ohean; gauerdian jaiki eta hiri-sarrerako bi ateak beren zango, **ataga** eta guzti orpotik atera eta bizkarrean harturik, Hebronen aurrean dagoen mendi-gailurreraino jaso zituen. Elizen arteko biblia

---

ataizean *(corpusean ez dago; ETCn* ***8*** *agerraldi) adlag* zelatan.

Ataizean badago, bere itxarotea egintza aurreratua da eta, osotasun banatugabea eratuko du burutzen ari den egintzarekin. ETC-literatura, saiakera

Ataizean dira arriskutsuak, miseriak jotako behe auzoetan makur zelatari, bekaizti marmar, gorrotoz borbor. ETC-literatura, saiakera

Segitzen dituk, zelatatzen dituk, gorroto dituk: beren ganbaretan **ataizean** dauden munstroak, azoka ustelen inguruetan oinak herrestaka daramatzaten munstro txapindunak, lanproiaren begi berde iluneko munstroak, keinu mekanikozko munstroak, munstro txotxatuak. ETC-literatura, saiakera

Oposizioko indarrak bozetan gehiengoa lortu eta bi egunetara dimisioa eman zuen Najib Mikati lehen ministro ohiak adierazi zuenez, berriz, Libanok aurrerapauso bat ematen duen aldi oro, **ataizean** dauden jende batzuek odolezko mezuak zabaltzen dituzte. ETC-prentsa

---

ataka **1** *iz* haitzuloetako sarrera estua, harresietan egiten den irekidura eta, oro har, edozein igarobide mehar.

Azkeneko hau eta (Unalbideko **ataka**, Unalbideko lepoa...) gogoangarri dira oraindik Goizuetan. Patziku Perurena

Ni neu ere ihes egiteko lekurik txarrenean nengoen, **atakatik** gertu baitzen motor-hotsa. Juan Kruz Igerabide

Rohango **Atakarako** bidean jada, bidaiariak arinago zihoazen, lauhazka. Agustin Otsoa

Hezurretaraino izoztu zuen haize bolada bat jaso zuen aurpegi-aurpegian, eta **ataka** itxi eta morroiloa eman zion berriro, Sam kanpora irtena zela ohartu gabe. Josu Zabaleta

Sakanetan barrena luzatzen eta bihurritzen dira ibaia zein errepidea bera, eta batzuetan hain dira estuak haitz-arteko pasabideak non ezinezkoa baitirudi **ataka** horietatik iragaitea. Xabier Montoia

2 ate txikia.

Hamabiak eta hamar aldera, frontoiko **ataka** zabaldu zen, hara iristen baitzen bidezidor bat, komunista bizi zen aldetik zetorrena. Juan Kruz Igerabide

Presaka token bat zirrikituan sartu zuen eta **atakako** beso mekanikoak jiratuz lasterka jarraitu zuen. Iñaki Zabaleta

Harriz egindako baserri bat utzi nuen eskuinean, ate ojibalekoa; gero ezkerrean **ataka** basa bat, non uhar bat ageri baitzen behiala etxea izandako puskailen artean erarik bortitz eta bitxienean. Koldo Izagirre

Denak kontraleiho gorriekin eta ur-bazterrean zurezko **atakak** zituztela. Fernando Rey

Makutsik, Jimmy **atakatik** beha zegoen. Lopez de Arana

Hezurretaraino izoztu zuen haize bolada bat jaso zuen aurpegi-aurpegian, eta **ataka** itxi eta morroiloa eman zion berriro, Sam kanpora irtena zela ohartu gabe. Josu Zabaleta

3 kinka larria, estualdia.

Ezin nian utzi galdetu gabe, eta, orain, galdetu ondoan, gaizki egin ote dudan errezeloa zaukaat, **ataka** batean jarri haut inondik ere, zeren erantzun nahi duk, egia esan nahi duk, eta nik ez diat galdera behar bezala egin. Xabier Olarra

Ez zen lehen aldia bere burua **ataka** hartan aurkitzen zuena. Harkaitz Cano

Zalantzaren **ataka** horretan -gizona da ala trepeta mekanikoa nire ispiluko hurkoa?-, eleberriak filosofiaren suziria hartu zuen: literaturak filosofiak ez bezala jaso zezakeen gizakiaren izaera ezbaitsua, Cervantesek Quijotea eta Sancho sortzerakoan erakutsi zigunez. Anjel Lertxundi

Ikusiko duzu, onik aterako gara **ataka** honetatik. Jon Muñoz

Horrek konpreniarazi zidan gauza lasaitzen hasia zela berriro, eta agian, tentuz jokatuz gero, **ataka** horretatik onez atera nintekeela. Jon Alonso

Atzera biderik gabeko **ataka** hartan ere (eta **ataka** hartantxe batez ere) gizonezkoari azkena deitzeak adierazten zuen begirune hark harritu zuen Nora. Anjel Lertxundi

Azken garraioa eta libre naiz **ataka** honetatik. Iñaki Zabaleta

Garbi ikusten baitut, orain, **ataka** honetatik neuk atera behar dudala, inork ez duela niretzako errukirik izango mutu geratzen banaiz. Anjel Lertxundi

Martin dotore portatu da **ataka** honetan, komandante baten zuhurtzia erakutsi du. Koldo Izagirre

-Ene bizitza da eta iritsi naizen **ataka** honetan ez dago atzera bueltarik. Patxi Zubizarreta

Bi ordu geroago ezin argituzko misterio handiaren aurrean egongo ziren, hara zihoazen, bizitzatik heriotzara alde egingo zuten, eta **ataka** horretan ezagutu zuten elkar. Jose Morales

Denek eta guztiek arrazoia duten mementorako balio dezakeen metodologia ezezagun batek soilik atera gaitzake **ataka** honetatik. Hasier Etxeberria

Ataka hartatik onik irtenez gero. Edorta Jimenez

Nola edo hala, atera da **atakatik**. Pako Aristi

Joanes hobeki atera zen **atakatik**. Aingeru Epaltza

Nolabait **ataka** estu hura pasatu genuen eta, gaua jada, New Yorkeko La Guardia aireportura heldu ginen. Iñaki Zabaleta

-Catherineren etxeraino laguntzen banauzu **ataka** estuan harrapatuko dugu. Iñaki Zabaleta

Halaxe pentsatu nuen **ataka** larri hartan: Denak ezin sinetsizko kontuak, gu denok orain halako **ataka** larrian jartzeko. Karlos Linazasoro

Ez dakit **ataka** gaizto honetatik bizirik aterako garen ala bertan fin gaitz egingo dugun. Joxean Agirre

Ataka gaiztoa! Jose Morales

Ataka gaiztoan sartu nauk, eta orain damu diat ezkon-hitza eman izana. Jose Morales

Ivyk bai jarri ni **ataka** gaiztoan: jakinaren gainean zegoen noiz nintzen iristekoa, eta ezin izan nion ixkin egin. Joxe Austin Arrieta

Kontua da Inkisizioaren **ataka** gaizto hartatik ere onik atera zela Johanes. Martin Anso

Egia esan, eta Maryk berak kontatuko zuen moduan, **ataka** gaitz hartatik aterako zuen pertsona Pako Garai da. Edorta Jimenez

Apezpikuak **ataka** gaitzean zeuden: ez zetozen bat egin behar zutenaz. Iñaki Iñurrieta

Ezin duk ehiztaria **ataka** gaitzeko larrimin horretan utzi, gizona! Anjel Lertxundi

Gorputzaren eta arimaren ardura galtzen den **ataka** bitxi horretan gertatu zen, eta mundua oroitzapen nahasi eta korapilatsuen hodei konkor ilunen gisakoa egin zitzaion. Patxi Zubizarreta

Har dezagun orain gogora datorkigun ordurik larriena, bai, huraxe eta bera: kontzientzia zintzo eta erabaki ohartuen mintzak osotara urratzen dituen **ataka** beltz hura. Iñaki Segurola

Baina, esan bezala, **atakarik** latzenean hasten ohi gara irtenbidea igartzen: badago natura, gizakia, herriak, bizia, diferentziak, mendean hartu, batu eta lehenbailehen mozkin bihurtu beharrean, bakean libre uzten dituen eta abegi egiten dien jarrera bat. Markos Zapiain

Nahiago nuen ez oroitu nire aho-handiak sartua zuela halako **atakan**. Aingeru Epaltza

Dikotomia faltsu horrek, bakoitza bestearen arerio bailitzan, aukeratzeko **atakan** jartzen du bat (euskalduna) besteari (unibertsaltasunari) aitzi, edo alderantziz. Askoren artean

Ez dakitela **atakatik** irtengo den. Hasier Etxeberria

Ate aldera egin nuen, **atakatik** ihesi. Anjel Lertxundi

4 ***sare ataka*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Sare atakak edo ataka logikoak konputagailu komunikazioetan zerbitzu ezberdinak antolatzeko zenbakiek izendatzen dituzten memoria atalak dira. ETC-entziklopedia

Alegia, wifi zein **sare ataka** ezberdinak eskaintzen dituzte hainbat ordenagailu konektatu ahal izateko. ETC-prentsa

---

atakada *iz* erasoa, atakea.

Ikusi ez beharreko zerbait ikusiak ginen, edo jakile ginela usteko zuten, Mola jeneralaren bosgarren kolumna ziren, tiroketa eta **atakada** saioak egitera isilean etorriak. Koldo Izagirre

Tiro eta **atakada** batzu badira beti eta hil batzu ere han hemenka, amerikano eta irakiarretan. Herria

Horien guzien artetik, batzu preso eginak, edo hortxe, ehortzeta bat, herriko bi gazte, batek 20 urte eta besteak 21, **atakada** batean hil dituzten hobengabeak, gaixoak. Herria

Berri lazgarri batek hunkitu gaitu ganden igande 21 bat aratsean, jakin dugularik Serge Betbeder supituki hil zela bihotzeko **atakada** bortitz baten ondorioz: 45 urte zituen. Herria

---

atakamita *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* kobrea daukan mineral berdea, erraz urtzen dena.

Atakamita mineralaren formula kimikoa hau da: Cu2Cl(OH)3 Kristal-sistema ortorronbikoaren arabera sortzen ditu kristalak. ETC-entziklopedia

atakatu, ataka(tu), atakatzen du *ad* eraso egin.

Pearl Harbour portuaren erasoa egin eta gero, 1941eko abenduan, japones soldaduek Filipinak **atakatu** eta berenganatu zituzten. Ramuntxo Etxeberri

Emakumeen beloa eztabaidatzen bada, ezingo da islama bera **atakatu**. Joxe Azurmendi

Pearl Harbour portuaren erasoa egin eta gero, 1941eko abenduan, japones soldaduek Filipinak **atakatu** eta berenganatu zituzten. Ramuntxo Etxeberri

Beste batez errana ziguten goizeko hiruetan beharko genuela jeiki kurri joateko ez genakien nora eta biharamun goizean ohean iratzartu ginen, gostuan, estonaturik; zerbait gertatu zela eta hau: Geryville hirira arma bila johan zen deskatamendua **atakatua** izan zela. Piarres Aintziart

Setio **atakatua** izan zen, baina -lehendik ere banekien- Garrüze ez zen Nabarrenkoxe. Aingeru Epaltza

Jakintzaren arbolako orri ilun esperantzarik gabeko hauetan Pío Baroja sumindu bat ageri da, izuaren eta jasotako ideien kontra borrokan, erotismo bizi larri batek **atakatua**, sentsualtasun ia gaixo batez gainditua, sekula ez asetzera kondenatua. Josu Zabaleta

Hori zinez **atakatzen** eta erasotzen dü Albert JACQUARD jakintsünak, "J'accuse l'économie triomphante" libürüaz: 1995ean agertü zen, bena oraikotarzünik ez dü galdü, arte hortan handitü baizik ez beitira salatzen dütüan oker eta makürrak. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
atakatua izan da (4); **atakatua izanen da** (3); **atakatua izanen zela** (4); **biziki atakatua** (7); **partida atakatua izan** (4); **partida atakatua izanen** (5)

---

atakatzaile *iz* atakea egiten duena.

Gero, berriz itzulian, alegia sartzera egiten zutenean lehengo bi **atakatzaileek**, beste biak halaber atzemanarekin joaiten ziren. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

atake 1 *iz* erasoa; eritasun baten bat-bateko jazarpena.

Amak **atake** bat izan dik eta ni datorren astean itzuliko nauk eskolara. Lopez de Arana

Ezin zen baztertu I.jaunak, kommozioaren ondorioz, garuneko alde ñimiñoren batzuk kolpatuak izatea; istripuak **atake** txikiren bat eragin zion, apika; edo, alderantziz, atakeak istripua. Xabier Olarra

Intentzioak aparte, Unamuno-ren interbentzioa Bilboko Lore Jokoetan euskararen bizirauperari **atake** bat zuzen-zuzenekoa izan da. Joxe Azurmendi

Guztiarekin ere, beldur itzela sentitu du, paniko **atake** bat, zehatzago esanda. Patxi Iturritegi

Hirurogeita hamar urteko gizon batek mingainari koska egin omen zion epilepsia- **atake** batean, eta, hala ere, osatu egin omen zitzaion berriro, eta koskadaren arrastorik ez antzemateko moduan osatu ere. Irene Aldasoro

Eraman ezazue hemendik! -oihu eginda, atzerantz erori zen nerbio- **atake** batek jota, auhen indargeak etengabe eginez. Lopez de Arana

Egia esan, inoiz ez naiz klaustrofobia **atake** batetik hain hurbil sentitu. Bernardo Atxaga

Halako batean, txatarrategiko nagusi zahar samar hura apoplexia **atake** batek jota hil zen puru bat erretzen ari zela, eta horrela amaitu zen bere istorioa. Pello Lizarralde

Etxean afaldu dutela, afaltzera irtetekoak zirenean Bertak antsietate **atake** antzeko bat izan duelako. Eider Rodriguez

Lopezek Espainiako Gobernuko hainbat ministrorekin izandako bilerek eragindako kritikei dagokionean, EAJrena "bekaizkeria **atake**" bat dela esan zuen. Berria - Euskal Herria

2 ***beldurrezko atake*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Izu-atakea edo **beldurrezko atakea** antsietatezko gertakari labur eta akutua da, bat-batean hasi eta izu-sentsazio lazgarria sortzen duena. ETC-entziklopedia

3 ***izu atake*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Izu-atakea edo beldurrezko atakea antsietatezko gertakari labur eta akutua da, bat-batean hasi eta izu-sentsazio lazgarria sortzen duena. ETC-entziklopedia

-Esaten ari natzaizu lagun askoren artean eutsi beharra izaten zutela, **izu atakeak** ematen zizkiolako. ETC-literatura, saiakera

Aldiz, Bigarren Mundu Gerrako ibilerez osatu zuen liburuan dioenez, bere bigarren Kontax kamerako karretea bukatu eta, aldatzekotan zelarik, **izu-atakea** jasan zuen. ETC-literatura, saiakera

Lokartu zinela iruditurik, isil-isilik alde egiten saiatzen nintzenean, **izu-atakeak** ematen zizun. ETC-literatura, saiakera

Lubitzek tratamenduan zegoen, depresioa, antsietatea eta **izu atakeak** tratatzeko. ETC-prentsa

Chantal Umurungi psikologoaren hitzetan, egunotan sentiberago daude herritarrak, eta ohikoagoak dira **izu atakeak**. ETC-prentsa

Agorafobia dutenek jendaurrean **izu-atake** bat jasateko edo beren buruaren kontrola galtzeko beldur dira; fobia soziala dutenek, aldiz, besteengandik ebaluazio negatiboa jasotzeari diote beldurra. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
amak atake bat (4); **atake bat izan** (7); **atake batek jota** (4); **nerbio atake bat** (3)
atakeren bat (3)
gisako ataketan (3)

---

atal *(ETCn **24.487** agerraldi)* 1 *iz* gauza bat banatzen den zati bakoitza; zerbaitetatik berez daitekeen zatia edo puska; lege testu eta arautegietan, kapitulu bat banatzen den zatietako bakoitza.

Baina hori idazteko ez nuen eskuargia, koadernoa eta luma berriro hartuko, hori biharko **atalean** idatz bainezakeen. Patxi Zubizarreta

Eta gure **atala** eta gero nola jarraituko duen ere gustura jakingo nuke. Agustin Otsoa

Beldur naiz ez ote duzun hutsegite bikoitza egin: definitzen ahalegindu naizen jardute diskurtsiboei dagokienean, alde batetik, eta giza askatasunari zuk zeuk gordetzen diozun **atalari** dagokionean, bestetik. Xabier Arregi

Atalean-atalean aipatzen ditudan edizioak neuk erabili ditudanak dira. Pablo Sastre

Makina bat liburu ari naiz irakurtzen: gaur lau **atal**, bihar beste lau... Harkaitz Cano

Elizaren hierarkia-egitura burdinazko eta ahaltsua haustura - eta porrot-mehatxupean aurkitzen da, gero eta indar eta astrapala handiagoz buruan eta **ataletan** erreforma eskatzen duten sekta eta heresien mugimendu eta errebindikazioek hertsatua. Joan Mari Lekuona

Atal horietatik ostera bat egin ondotik, paparrean gora joz, mantso-mantso eraman zituen begiak Zenobiaren ezpainetaraino, eta haietantxe pausatu zituen, leunki. Josetxo Azkona

-Eguraldiarekin loturiko informazioa, kazetaritza genero bihurtu du, sinesgarritasuna eman dio, **atala** zena genero duin bihurtuz. Pello Zabala

Egunkaria erakutsi zion tabernariak, politikako **atalean** tolestua. Koldo Izagirre

Ondo idatzitako nobeletan bezala, kapitulu bakoitza historia osoa da berez, eta, aldi berean, hurrengo **atalarekin** kateatuta dator. Rafa Egiguren

Beraz, zer eskaintzen digu etorkizunaren ezagueraren **atal** horrek osasunaren arloan? Juan Garzia

Motoaren atzeko kaxan portzelanazko **atalak** ondo lotu eta abiatu nintzen. Pako Aristi

Konturatu al zarete aitzinsolas honek lau **atal** dituela (lau letrako izenburu banarekin), **atal** bakoitzak lau paragrafo, paragrafo bakoitzak lau esaldi? Iñaki Arranz

Hurrengo **atala** ume denborari buruzkoa da, hor aitaren patologia aipatu behar omen da bereziki, baina zati hau ere hutsik dago. Joseba Sarrionandia

Kosmosari, materialtasunetik Adimen Banatuei (aingeruei, Maimonen arabera) eskainiriko **atala**. Xabier Kintana

Zinez da loarazlea zori oneko belar-edabea, logura ezti bat baitakar gorputzeko **ataletara**, eta ezeren kontu edo ardurarik ez egite bat ere bai burura. Edorta Jimenez

Desberdinak laurak: hasierako hirurak, **atal** bakarrez eginak; eta azkena, berriz, bi adar disjuntuz osatua. Jon Muñoz

Esaten dutenez, sail bakarra egoten da gatazkez libre: jaioberrien **atala**, hain zuzen ere. Iban Zaldua

Karro zahar bat, elegantea, baina karrozeria kolore ezberdinez osaturiko **atalekin** egina. Pako Aristi

Ezinaren **ataletan** higitzen dira. Gotzon Garate

Saio honen hirugarren **atalean** aztertuko dira kontu hauek guztiok xeheago. Koldo Zuazo

Laranja baten **atala**. Jasone Osoro

Bosgarren **atalean** gure zaldunaren zoritxarra aipatzen da. Patxi Ezkiaga

Gizakiaren parterik nobleena mendean beste guztiak hartzen dituen arimaren **atala** dela, nork jar lezake zalantzan? Imanol Unzurrunzaga

Beste **atal** batean mintzatuko gara honetaz: batzuek zakur arriskutsuak borrokarako erabiltzen dituzte. Gotzon Garate

Gutxitan bezala, urtebete lehenago osatzeko nuen mila **ataleko** puzzle bat egiten jarri nintzen: Ramon Saizarbitoria

Zeren bere egoera hark bi **atal** baitzituen, eta lehenengoa baizik ez baitzen bete. Joan Mari Irigoien

Dozena erdi bat lagun astoaren inguruan ezarri, mutikoari egur zama kenarazi, eta oldartu zaizkio, bakoitzak ahal duen **ataletik** atxikirik. Xabier Montoia

Eta niretzat, kasu honetan, soziologia hitzak bi **atal** besterik ez zuen azaltzen: bat, adinen piramidearen azterketa. Joxemari Iturralde

Moda-kontuak, emakumeen **atalari** emandako orri ilustrazioduneanan: Hamalauzpamasei Andereñoentzakoak noski. Mirentxu Larrañaga

Gabriel Arestiren poema ezagunaren **atal** horixe buruan jira eta bira nuela pasatu nuen atzoko goiza. Joxerra Garzia

Letra letrari jarraitzen zitzaion, lerroa lerroari, **atala atalari**, liburua liburuari: ibilera hark goxoki eramaten ninduen loaren mugara. Bernardo Atxaga

Burezurra, eta, hurrengo, izaera: horiek dira gorputzaren **atalik** gogorrenak. Oskar Arana

Bibliografia, fotokopia, aldizkari edo beste edozer gauza nondik lortu, asmoa nori aipatu, eta balizko historia hori nondik hasi edo zenbat **ataletan** sailkatu ote litekeen galdegin diogu elkarri. Jokin Urain

Baina hura berri laburren **atalean** ipini izanak ekarri dizu amorraziorik handiena. Lutxo Egia

Film haietan azaltzen zen lexikoa euskaratzerakoan arazo txikiren bat izan genuen, baina moldatu ginen; eta beste funtsezko **atal** bati zegokionez, hotsen munduari buruz, alegia, asko ikasi genuen zinta haiei esker. Jon Arretxe

Istorio bihurri hura entzunda, senarraren **atalean**, gizon hark susmatu zuen Federico salatzeko moduko kriminal bat izan zitekeela. Pello Lizarralde

Landu ere, zein bere aldetik lantzen ditu gezigileak **atal** biok. Joxerra Garzia

Europaren erretratua osatzeko bost **atal** izan litezke. Edorta Jimenez

Errepidetik yarda batzuetara harkaitzezko muino altu, aldapatsu, beltz bat zegoen, mendi lerro apal baten **atala**, bidezidorrez eta haitzulo txikiez josia, eta indiar margolanak ageri ziren han eta hemen haitzuloetako hormetan. Koro Navarro

Orduan bere barrunbeetatikako ahots garden batek oroitarazi zion berak atzeraka ere bazekiena, hots, bere bizitzaren kontaduria osatu gabea zegoela oraino, eta bere bizitzako **atalen** multzoa ere bai. Iñaki Segurola

2 (izenondoekin)

1962an ETAren idatzitzat argitaratu ziren koadernoetan bada "Estatua"ri eskainitako **atal** argigarria. Joseba Zulaika

Apustu egin dezagun, beraz: aurki, farmaziaren **atal** handi bat janari-dendako apalategietan egongo da salgai. Edorta Agirre

Lau **atal** sinple dituen inprimaki bat betetzea baino ez da behar. Txema Ramirez de la Piscina

Bere ordenagailuan "lagun handiak" idatzia du, komatxoak eta guzti, bi horien "kasuaren" aipua egiten duen **atal** gero eta gizenagoan. Aingeru Epaltza

Esaldi solteak dira, **atal** desberdinetakoak. Felipe Juaristi

Edaberik Ahaltsuenak delako liburu batean zegoela esan zuen Snapek, eta hori liburutegiko **atal** debekatuan dago. Iñaki Mendiguren

Liburua **atal** laburretan banatua dago: Gerlaria jaiotzen da, Gerlaria esnatzen da, Gerlariak bidaiari ekiten dio, Gerlariak barrua erakusten du, Gerlariak anaia bilatzen du, dena horrela. Pako Aristi

Konta nahi nuke zehatz-mehatz, Lurdesi zor baitiot bizitzako **atal** berezi bezain interesgarria nirean sortu izana, orduantxe ausartu bainintzen, gogo handirik gabe, egia, eta noraino eramango ninduen urrundik ere usnatu gabe. Pello Zabala

Pentsalariak Espazioa eta arima izeneko bere idazlanean aztertzen zuen sakonki maitasuna eta denbora-jauzien artean egon zitekeen harremana, hain zuzen ere, liburuko **atal** bitxi batean. Aritz Gorrotxategi

Bi **atal** nagusi ditu liburuak. Askoren artean

Badirudi adin batetik aurrera ardoak bakarrik lortzen duela agureen hainbat **atal** indargetu eta soraio, eskuen ukimena edo zaporea, adibidez, berpiztu eta bizipoztea. Pako Aristi

Baina -enetzat, eta beste batzuentzat, zeinen iritzia ospez gailentzen baitzaio eneari halako gaietan- antzezlan bikaina zuan, atalez **atal** ongi antolatua, begiramen bezain talentu handiz idatzia. Juan Garzia

Nire galdea egiten badiate, esaiek Antonio deitzen didazuela, eta **atal** sindikala besterik ez dagoela nire esku. Rafa Egiguren

Aurpegi laru argala dauka, begi ilun handiak eta samatik larruazal **atal** zimel bi daramatza esekita: ehiza txakur bizkor eta zintzoa ematen du. Urtzi Urrutikoetxea

Kontsolamendu hori geratzen zaio sasoian dagoenari, pentsatzea ezen makuluak, zorionez - eta ez damurik, Mitxelenak zioen bezala -, ez direla gorputzaren **atal** naturalak. Imanol Zurutuza

Harry **atal** debekatura hurbildu zen. Iñaki Mendiguren

Gure larruazal guztia da **atal** erogenoa. Luis Elberdin

Gaur berton, 2000ko agor hondar honetan, honenbeste urteren ondoren Le Moulleau honetara, bakarrik, jota, oroitzapen **atal** histuak biltzekotan etorrita, Bordeleraino hurbiltzea bururatu zait... Txillardegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Karrika hertsi hori segituz - lehen Leizparze hunaraino jiten baitzitaken - beste **atal**-harri bat ikusten da, hau aldiz espainolez: Michel Oronoz

Bai baitaki jendeak hura sartu ezkero, deabruak hartuko liokela etxea, eta haren marru tristea aditu ordukotz, itxi egiten ditu ateak, **atal** gainak, leihakumeak eta inoneneko zirriku guziak. Patziku Perurena

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina ez nuen astirik lekuari begiratzeko: nire inguruan dena zen oihu mordoa, zarata, berba eta gertakizun **atalak**, eta lerroka sailkatzeko joan-etorriak. Urtzi Urrutikoetxea

Washingtonera Alemaniako idazle judu batentzat bisa bat lortzera joan, eta hegazkin **atalak** ekoizten zituen enpresa bateko bazkide egin zen han. Koro Navarro

Eta beren etxera heldu zirelarik, musuzapia kendu, eta lau gorpu **atalak** elkarri josteko agindu zion. Patxi Zubizarreta

Erkatu, esaterakoa fonetika eta fonologia **atala** eta foniko **atala**. Lourdes Oñederra

Argi **atal** handiak daude, hodeien artean, ezkerraldean, beirate bateko laukiak eratuz. Josu Zabaleta

Trabarik gabe iritsi da pareta **atal** baten gainbeherak irekitako zulo ondora. Aingeru Epaltza

Aurrezki **atal** sendo bat nola antolatu zuen izenburua. Xabier Olarra

Berez, ajerezean ez da denborarik irabazten -hau da, ez dago atzerapen kontzienteetan edo azpijokoetan ibiltzerik-, bizi **atal** bat galdu baizik. Karlos Linazasoro

Etxe hartan, belaunez belaun, foie gras famatua maneatzen zen; eta osaba Praixkuk ere, bertan eskolaturik, bere gain hartua zuen aspaldidanik antzara-lumaz edredoiak prestatzeko lan-**atala**, eta gero beroriek Akizen saltzea. Txillardegi

"Entzun dezagun hau isil-isilik, oso erlajatzailea da", esaten zuen Dorak, bere kaset hura, soinu sekuentzia metalikoak errepikatzen zituena, kotxearen irrati **atalean** sartuz. Bernardo Atxaga

Gaur egungo ikerkuntzan, jakintza-arlo desberdinetatik giza hizkuntzari buruz egiten diren azterlanen elkargunea hizkuntzari dagokion garun **atala** da. Itziar Laka

Eguzkiak katedral zaharretik artean zutik zirauten horma **atalak** ukitu zituen eta haren izpien indarra eztitu zen gero. Joxan Elosegi

Gogo asaldatua baretu zen, pentsamendu **atalak** desagertu ziren, eta tristura bakarrik geratu zen. Jose Morales

5 *atalez atal*

Neurketa **atalez atal** aztertu ezkero maila goreneko partida bat izango dela aurrera daiteke. Berria - Kirola

Mobilizazioa saihestea dute helburu eta horregatik aurkezten dituzte aldaketak **atalez atal**. Berria - Euskal Herria

Aurki, ordea, mina hasi zitzaion, pixkanaka, gorputzaren **atalez atal** sai talde bat haragiari tiraka hasi balitzaio bezala. Pako Aristi

Azkenik, gizakumea apurka-apurka eta **atalez atal** joaten eta bizi sentimena galtzen maiz ikusten dugu. Xabier Amuriza

Hilabetero desmuntatu eta garbitzen diat **atalez atal**, baita kotoiz xahutu ere ipurdi zilarkara. Aingeru Epaltza

Atalez atal kontatu nizkion azkenekoz elkarrekin izan ginenez geroztik gertatu zitzaizkidan gauza guztiak. Oskar Arana

Jango al duk okela hau, hire gorputza **atalez atal** torturatu baino lehen? Elizen arteko biblia

Agintea nork zeukan erakutsiz, Igeldokoak berarekin orpoz orpo joan gintezen behartu gintuen eta, halaxe egin genuen; ontziaren gorputza **atalez atal** aztertu, eta, azkenean, Ánimas gureak eritasun sendaezina zuela berretsi. Edorta Jimenez

Lehenengo eta behin, etnia, nazioa, estatua... eta antzeko kontzeptuak saiatu ginen ulertzen, eta, gero, Euskal Herriko historiaren eboluzioa ere aztertu genuen, **atalez atal**, karlistaldietatik hasi eta frankismora ailegatu arte. Rafa Egiguren

6 *baratxuri atal* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Guardia bere lekura itzultzen da, **baratxuri atal** bat mastekatzen du eta rakija hurrupa batez eztarria bustitzen. ETC-literatura, saiakera

Ogi-piskinak: friji sartaian hiru **baratxuri-atal** eta urdai zati batzuk. ETC-literatura, saiakera

Orduan botatzen zaio oilo baten erdia, kipula bat, lau **baratxuri atal**, nahastu apur bat eta ordubete-edo uzten da irakiten. ETC-literatura, saiakera

Baratxuri atal bat, zerrenda finetan. ETC-prentsa

Baratxuri atalak, zuritu gabe, hozkailuan gorde daitezke, estalian zulo batzuk eginik dituen potoan. ETC-prentsa

Igandean, goizeko hamarretatik hasita, irekita izango ditu bisitariak herriko oliotegiko ateak, eta oliotan bustitako ogia izango du bertan dastatzeko, **baratxuri atal** batez igurtzia. ETC-prentsa

Porru salda egiteko poltsatxoak ederki jarrita ditu postuan, ilaran, porrua xerratua, baita azenarioa ere **baratxuri atal** batekin lagunduta. ETC-prentsa

Ur pixka batean bi **baratxuri atal** irabiatu txiki-txiki egin arte. ETC-prentsa

7 *berakatz atal* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Joateko imintzioa egin du, baina, alde egin aurretik, gizonarengana hurbildu eta sar ezak patrikan esan dio, poltsikotik atera duen **berakatz atala** emanez. ETC-literatura, saiakera

" **Berakatz atal** bat ekartzea nahi duzu? ETC-literatura, saiakera

Kipula txikitua 3-4 orduz sutan izan: gehitu urdaiazpiko hezur bat, **berakatz atal** bat edo bi, perrexil adaxka eta almendra eskukadatxo bat. ETC-prentsa

8 *eskailera atal*

Barandaren kontra erori zen azkeneko **eskailera atalean**. Koro Navarro

Isilean igo zituzten azken **eskailera atalak**, eztabaida latzak muturtuta. Alberto Ladron Arana

9 *gazta atal*

Nola gainditu tabernaren tentaldia, bidaztiari freskotasun altxorrak eskainka barrika, zahagi eta pegarretan? Barne-arkupe motzak, Valdepeñaskoen promesak, **gazta atal** erraldoiak, urdaiazpikoak, hestebeteak, odolkiak, "libretako» ogiak, Espainiako olibak. Berria - Kultura

10 *gorputz atal* *(orobat **gorputzatal**)*

Mihia ez beste **gorputz**-atal guztiak ezinduak zituen. Askoren artean

Kristinaren **gorputz**-ataletan, aldakak nituen gogokoen. Aingeru Epaltza

Emakume bortxatuen izter izerditsuak, umeen **gorputz**-atal sakabanatuak. Karlos Linazasoro

Bazen Fano herrian hidropiko bat, **gorputz**-atalak itxuragabe handituak zituena. Askoren artean

Gorputz-atalak orain kuzkurtu, orain zabaldu, orain bildu eta okertu, orain zurrun jartzen zituen eta gogor. Askoren artean

Txakur baten **gorputz**-atalak ezin saldu edo jan direlako. Oskar Arana

Janaren urritasunak hilarazten zituen **gorputzatal** makalduak. Xabier Amuriza

Gorputz atal-emaileek badute beren elkarte berezia gure eskualdean ere, Adot 64 deitzen dena. Herria

11 *perpaus atal*

158. orrialdeko adibideek aditzera ematen dute sintagmaren nozioa ez dela hitzen gainean bakarrik zertzen, baizik eta orobat hitz multzoen gainean, dimentsio orotako eta mota orotako unitate konplexuen (hitz elkartu, eratorri, **perpaus atal**, perpaus osoen) gainean. Isabel Arrigain

12 *plater atal* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Zirujauaren trebeziaz bereizi zizkien xerra biak, doitasun arduratsuaz pilatzen zituen hezurrak, buruak eta izpiak **plater atal** batean. ETC-literatura, saiakera

Apalategi batetik **plater atal** bat hartu eta, irribera, lapikoaren jiran jesarrita dauden soldaduen artera sartzen da, platera luzatuz. ETC-literatura, saiakera

13 *soin atal* *(orobat **soinatal** g.er.)*

Ratapoil pertsonaiaren kokaera, **soin-atalez soin-atal** desmuntatzen du, gorputz-atal horiek keinu oso bat beraren segidako uneak direla frogatzeko. Josu Zabaleta

Beraren **soin-atal** lirain luzexkekin, pertsona ahul, eraginerraz eta maritxuaren eredu berbera zen. Oskar Arana

Soin-atal guztietan sentitzen nuen dardara izuarena zen. Anjel Lertxundi

Ukitzean hotzikara luze bat sentitu nuen **soin atal** guztietan zehar. Josu Zabaleta

Jantziek zabalegi ziruditen haren **soin atal** iharrentzat, haren bular estutuarentzat, haren sabel hustuarentzat. Josu Zabaleta

Eskuetatik artelana eta espiritutik hura egiteko asmoa kentzen badiozu, non eta **soin atalen** xedea plazera edota denbora-pasa baino izan ez dadin, orduan langintza honi *dantza* deitzen diogu. Imanol Unzurrunzaga

Etsaien sable okerra baino zaurigarriagoa zen haizea eta hotza, esku-hankak ez ezik, **soin atalak** oro, automaten gisa erabiltzera behartzen zituen nekea eta hotza. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

administrazio atal (11); **atal asko** (7); **atal bakoitza** (9); **atal bakoitzak** (10); **atal bakoitzean** (13); **atal bakoitzeko** (8); **atal bat** (125); **atal batean** (38); **atal batek** (12); **atal baten** (7); **atal batzuetan** (8); **atal batzuk** (37); **atal berri** (12); **atal berri bat** (9); **atal bi** (9); **atal elebidun** (11); **atal elebidunak** (10); **atal guztiak** (54); **atal guztiek** (11); **atal guztien** (11); **atal guztietan** (25); **atal hau** (19); **atal hauek** (7); **atal honek** (10); **atal honen** (21); **atal honetako** (9); **atal honetan** (62); **atal honi** (8); **atal hori** (37); **atal horiek** (16); **atal horietan** (7); **atal horrek** (12); **atal horren** (8); **atal horretako** (8); **atal horretan** (45); **atal horri** (10); **atal nagusi** (15); **atal nagusia** (10); **atal nagusiak** (20); **atal nagusitan** (8); **atal oso** (12); **atal oso bat** (8); **atalez atal** (32); **azken atal** (17); **beste atal bat** (33); **beste atal batean** (16); **bi atal** (44); **bigarren atal** (14); **bihar atal honetan** (7); **bost atal** (11); **gorputz atal** (94); **gorputz atal guztiak** (24); **gorputzaren atal** (16); **gorputzeko atal** (16); **hainbat atal** (20); **hiru atal** (30); **historiaren atal** (10); **horren atal** (8); **lau atal** (17); **legearen atal** (7); **lehen atal** (7); **soin atal** (7); **txostenaren atal** (7); **zein atal** (7); **zenbait atal** (17)

azken atala (31); **bigarren atala** (61); **bosgarren atala** (8); **buruzko atala** (7); **hirugarren atala** (26); **laugarren atala** (14); **lehen atala** (49); **lehenengo atala** (22)

bi atalak (7); **gorputz atalak** (70); **hirugarren atalak** (8); **soin atalak** (10)

atalean ikusi (8); **atalean ikusiko** (7); **aurreko atalean** (16); **azken atalean** (29); **bigarren atalean** (33); **buruzko atalean** (11); **eskainitako atalean** (12); **hirugarren atalean** (16); **hurrengo atalean** (14); **lehen atalean** (21); **lehenengo atalean** (14); **onenaren atalean** (14)

ataleko saria (7); **ataleko zuzendariak** (7); **plangintza ataleko** (9)

atalen artean (12); **atalen arteko** (9); **atalen bat** (8); **bi atalen** (7); **gorputz atalen** (26)

ataletan banatu (14); **ataletan banatua** (9); **ataletan banatuta** (14); **ataletan banatzen** (7); **bi ataletan** (17); **bost ataletan** (12); **hainbat ataletan** (14); **hiru ataletan** (29); **lau ataletan** (13); **zenbait ataletan** (7); **zortzi ataletan** (7)

atalez atal (32)

atalkako zuzenketak (8); **atalkako zuzenketen** (8)

---

atalaga *iz* ate langa.

Erregearen kontra hoben egin duena, heriotzara emateko kartzelan ongi ixten duten bezala, idoloen jauretxeetako ateak ere **atalagaz** eta morroiloz sendotzen dituzte apaizek, lapurrek eraman ez ditzaten. Elizen arteko biblia

Hanunek eta Zanoaheko bizilagunek berregin zuten Haraneko atea; eraiki ondoren, ate-alderdiak, **atalagak** eta morroiloak ezarri zituzten; gainera, bostehunen bat metrotan konpondu zuten harresia Zabortegiko ateraino. Elizen arteko biblia

Mahaitxo bat, lastozko bi aulki eta ate erraldoi bat, haritzezko armazoi batek eutsitako panelekin, presondegiko **atalagaz** eta ziudadelako sarrailekin. Koldo Izagirre

Gaur gauean arotz klandestino bat etorriko da; gure Frankfurteko oheen zuraz **atalaga** batzuk egingo ditu. Josu Zabaleta

Iltzez eta burdinazko **atalagaz** sendoturiko atearen bi orriak ireki ziren alderik alde, eta handik mairu batzuk irten ziren, poliki ibiliz, horietako bat, urteetan aurrera joandakoa, gobernadorea izan liteke, gobernadore-tituluak edozertarako balio du, Jon Alonso

---

atalai *iz* talaia.

Etxarrik orduan **atalaia** metaliko batera hupaturik bere segida eroanen zukeen Delbard jauna aurkeztu zuen. Itxaro Borda

Baina ez naiz posizione horretan sobera luzaz egoiten ahal, eta begiak kanpoko ikuspegi horretaz ongi ase ondoan, jausten naiz ene **atalaiatik**. Filipe Bidart

---

atalaje *iz* jendaila, jendilajea.

Egun batean, duela urte batzuk, haren dohain handiei errespetu handirik ez zien **atalaje** batek, sutauts zorro txiki bat erregalatu zion esanez Flashaw flabbergastor-en haziak zirela, balio komertzial handiko zereal patagonikoa, klima honetara ederki egokitua. Xabier Olarra

Alberto **atalaje** bat da, baina lagunak ongi hautatzen ditu beti! Fernando Rey

Agian ez dut oso argi utzi **atalaje** hura zer zebilen. Xabier Olarra

---

atalarri *iz* ateburua. ik **atalburu 2**.

Egun hartan zigortuko ditut, bai eta, **atalarri** gainetik salto eginez tenplura sartzen direnak eta beren Jaunaren etxea gogorkeriaz eta iruzurrez irabazitakoarekin betetzen dutenak". Elizen arteko biblia

Sarrera gaineko **atalarrian**, hiru letra: ildotan eta pintura beltzez idatziak: IHS. Txillardegi

Oihanaren **atalarriko** azken zurezko etxe apalaren aitzinean agertu ziren betiko balea hezurrezko zizelkadurak. Aurelia Arkotxa

---

atalas ik **atalas**e.

---

atalase **1** *iz* sarrerako ateko eskailera maila.

Zuk, Eugeni, emaizkiozu bi belarrondoko eder zure ama den andere honi, eta etxeko **atalasera** heltzen denean, jo ostikada bat ipurzintzurrean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ekialdera dagoen sarrerara joan, harmailak igo eta **atalasea** neurtu zuen: hiru metro zen zabal. Elizen arteko biblia

Emakumea ohartu zen gizona irmo kokatu zela **atalasean**, etxe arrotz bateko atea zeharkatu nahi ez balu bezala. Patxi Zubizarreta

Gizon erraldoi bat agertu zen **atalasean**. Iñaki Mendiguren

Haren gelaxkaren **atalasean** eseri zen, bizkarra atearen orrian bermatua eta hankak -ikatzezko bi habe fin irudi- luzaturik, emakumearen ezusteari eta haren begirakune gaitzesgarriari axolagabe. Patxi Zubizarreta

Tabernako sarreraraino aldaroka iritsirik, **atalasean** gelditu zen. Patxi Zubizarreta

Joxepa **atalasean** gelditu da, eta ateari eutsi dio Lainezek trabarik izan ez dezan. Pello Lizarralde

Apaizek printzearen erre-oparia eta elkartasun-opariak eskainiko dituzte; gero, printzea **atalasean** ahozpeztu eta irten egingo da, baina atea ez da arratsera arte itxiko. Elizen arteko biblia

Une horretan atea ireki zen, eta ate beiradun handiaren **atalasean**, agure zahar-zahar bat agertu zen, morroiaren atzean. Xabier Olarra

Liburuzaina gizamodu takar ezertarakoez bat zen, lotsagabe nabarmena eta lizunkiro itsusia, sartzeko asmotan inguratzen zirenak bere itxurarekin eta bere zaunkekin izutzeko hantxe **atalasean** jarria. Juan Garzia

Bi giza irudi agertu ziren **atalasera**. Aingeru Epaltza

2 fenomeno bat atzemangarria izateko behar den gutxieneko zenbatekoa edo kopurua.

Marinela, Konferentzia baino hilabete lehenago, heriotzaren **atalasean** izan da, Hemingwayk Arthur Minzener-i egin eskutitzean (1950-VI-2) aipatu bezala. Edorta Jimenez

Deusetarako denborarik eman gabe, menturaz nire zeharkatzearen berri ukan dutelakotz, eta beti ere eskizofreniaren **atalasean** nagoela argudiatuz, bai eta, "suizidioa" legez aurkakoa izaki, presondegiarena ere erabiliz -aitzina, ero dagoen gizartean bainoago nahiago dut espetxean... Jose Angel Irigaray

Jolas sexuala dela-eta bulkada elektrikoak bata bestearen atzetik pilatzen direnean, gehiago ezin den egoera batera, orgasmoaren **atalasea** deritzon egoerara iristen dira. Luis Elberdin

Giza irudimenaren sorkari baten jaiotza, ezerezaren eta betierekotasunaren arteko **atalasea** igarotzea den jaiotza, ustekabean ere gerta daiteke, ernalditzat premia bat badu. Josu Zabaleta

3 ***errentagarritasun-atalase*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Errentagarritasun-atari edo **errentagarritasun-atalasea**, mozkinak izateko behar den salmenten gutxieneko maila. ETC-entziklopedia

Aipatutako bi adibideez landa, linea bakar batek ere ez du lortu **errentagarritasun atalasea** gainditzea. ETC-prentsa

Aparteko kasuetan, laguntzak, baldin eta, interes publikoko arrazoiengatik, komenigarria bada herri lanaren erabilera sustatzea haren ustiapena gutxieneko **errentagarritasun-atalasera** iritsi baino lehen. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atalase bat (4)

atalasea iragan duela (3)

atalasean gelditu zen (4)

---

atalaurre *iz* atari-aurrea.

Sarrera nagusiko harmailetan gora nire bizitzan lehenengoz egitean 1936ko harako argazki hura datorkit gogora; Jauregiko **atalaurrean** Euzkadi´ko Jaurlaritzako agintariak dagoz, eta albo bietan behera beso modura zabaltzen diren harmailen aurrean, ni orain gora igotzen noan harmailon aurrean hain zuzen, hortxe dira ertzainak eta euren auto-motorrak. Edorta Jimenez

---

atalbanatu, atalbana(tu), atalbanatzen du *ad* atalka banatu.

Batzuetan ikasleari azaldu nahi zitzaion gaia bera ere, berez bakarra izan arren, zenbait alegoria ezberdinetan **atalbanatzen** zen. Xabier Kintana

Eta horrela ustezko substantzia (bere iraunkortasuna bestela segurtatua ez duen gauza) **atalbanatzearen** bidez ez bada ere bere indarren pixkanakako ahitzeaz (remissio). Ibon Uribarri

---

atalburu 1 *iz* kapitulua.

Hirugarren **atalburuan** Don Kijotek armak hartzeko izan zuen modu barregarria kontatzen da. Patxi Ezkiaga

Hogeita zazpigarren **atalburuan** Santxo ikusiko dugu Don Kijoterengana doala, apaiza eta bizargina zain gelditzen diren bitartean, erreka baten ondoan. Patxi Ezkiaga

Hogeita laugarren **atalburuak** Sierra Morenako abenturarekin jarraituko du. Patxi Ezkiaga

Ez dut ezagutzen nik Analitika transzendentalaren bigarren **atalburuan** adigai hutsen dedukzioaren izenburupean egindakoa baino azterketa garrantzitsuagorik adimena deitzen diogun ahalmena oinarritzeko. Ibon Uribarri

Aurreko **atalburuan** deskribaturiko jipoiek astinduta, Don Kijotek Baldovinos dela pentsatuko du eta, auzokide batek jasotzen duenean, zaldunak Mantuako duketzat hartuko du auzokidea. Patxi Ezkiaga

120. **atalburuak** testua osorik dakar. Askoren artean

Ondoren, XVII. **atalburuan** lehoiekin izandako abentura ospetsua dator. Patxi Ezkiaga

Hala ere, beren eratorketa subjektiboa egitea saia dezakegu gure arrazoimenaren izaeratik abiatuta, eta hau da **atalburu** honetan lortu duguna. Ibon Uribarri

Oharrarazi behar da, ordea, nik kritika transzendentalaren bigarren **atalburu** honetan arrazoimen hutsaren diziplina ez dudala bideratzen edukira, baizik arrazoimen hutsetik abiatzen den ezagutzaren metodora besterik ez. Ibon Uribarri

Don Kijoterengana etortzen da eta horrela hasiko da Kardenioren historia, liburuaren bost **atalburu** hartuko dituena: 24, 27, 28, 29 eta 36.ak. Patxi Ezkiaga

Hurrengo **atalburu** aipagarria berrogeita bosgarrena izango da. Patxi Ezkiaga

Bereziak dira honetan San Bonabenturaren bi liburuak: LeLu, adib, 15 atalburutan banatua dago, **atalburu** bakoitzak hainbat zenbaki dituelarik. Askoren artean

Hutsunerik adierazgarriena, beharbada, emakume bati buruzkoa da, Settesoliko Jakoba andreari buruzkoa, alegia: Zelanok **atalburu** osoa dedikatzen dio. Askoren artean

Juzgamenaren irakaspen transzendental honek bi **atalburu** barnebiltzen ditu: lehenak, adimenaren adigai hutsak erabili ahal izateko sentsuzko baldintzez jarduten du, h. d., adimen hutsaren eskematismoaz; bigarrenak, berriz, a priori halako baldintzapean adimenaren adigai hutsetatik segitzen diren eta gainerako ezagutzen oinarrian dautzan judizio sintetikoez, h. d., adimen hutsaren oinarri-[...]. Ibon Uribarri

Lege Papiarraren hogeita **hamabosgarren** atalburua zen, 19. leg., ff. de ritu nuptiarum. Iñaki Iñurrieta

2 atariaren aurrealdea.

Ibaiaz beste aldean berriz, bertako tren geltokiaren **atalburuan** hizki handiz idatzita, "Santurce-San Julián de Músquiz" zioen errotulua, guri ulergaitz zitzaiguna eta gure arreta merezi izan ohi zuena. Pedro Alberdi

Baserrira lasterka doa, zaldikoei hanka-jokoa eraginez, suak hartutako etxeari laguntzera ziztuan bezala; bat-batean, baserriko **atalburua** zapaldu dueneko, aharrausi egiten du, edo nekaturik lotara doa, ahanztura bila, edo baita hirira itzultzeko arin prestatu ere. Xabier Amuriza

Etxeko **atalburuan** ere, egungo elorri ordez lehen lizar adaskak paratzen ziren gurutzean. Patziku Perurena

Geltokiko **atalburuan** igitaia eta mailuaren irudi erraldoiak daude. Edorta Jimenez

Atalburuan egun-argitan neonezko argi geldoak pizturik zituen leku horretara iritsi eta autotik atera zirenean ohartu omen zen gizonak jantzirik zeraman esmokin zaharkitua zela hasieratik arreta erakarri ziona. Joxean Agirre

Besoak antxumatuta, **atalburuan** zutik, itxoiten ikusi nuen komisarioa, trajearen mahuken gainetik esku banarekin besondoak igurtziz edo neurtuz, bere giharrez harro, sabela barneratuz, arnasa lasai hartzea debekatu baliote bezala. Joxean Agirre

Atalburuan egun-argitan neonezko argi geldoak pizturik zituen leku horretara iritsi eta autotik atera zirenean ohartu omen zen gizonak jantzirik zeraman esmokin zaharkitua zela hasieratik arreta erakarri ziona. Joxean Agirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atalburu honetan (3)

atalburua adimenaren adigai (3); **atalburua arrazoimen hutsaren** (7); **atalburua don kijotek** (3); **atalburua hogeita** (5); **bigarren atalburua** (4); **hirugarren atalburua** (3); **lehen atalburua** (4)

hirugarren atalburuan (3); **hurrengo atalburuan** (4)

hirugarren atalburuko (8)

---

ataldu, atal(du), ataltzen du *ad* ataletan banatu.

Ikerketak, jakina denez, ikergaia gero eta gehiago zatikatuz, **atalduz**, egiten du aurrera, eta euskal herri-literaturari dagokionez ere halaxe egin behar genukeela iruditzen zaigu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

atalka 1 *iz* atalez atal; kapituluka.

Atalka irakur dezakezu: lehenengo eta behin, oso azkar, baina testua ulertuz. Askoren artean

Atalka hasi zen Agirre *Garoa* argitaratzen, 1907an RIEV aldizkarian, ale bakoitzeko kapitulu bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Ohitzen ari nintzen haren kontakizuna **atalka** aditzera. Aingeru Epaltza

Piarres Adame liburua, lehenago Donibane Lohitzuneko La Nivelle aldizkari "gorrian" eta *Le Réveil Basque* astekari errepublikazalean **atalka** publikatu bazen ere, osorik lehendabizikoz 1888an argitaratu zen, Pauen. Pablo Sastre

Narrazio sorta izan behar zuen, **atalka** argitaratuko genuena, testu eta irudiez osatua. Anjel Lertxundi

Gai bakoitza hobeki uler dezagun, **atalka** ikusiko ditugu. Askoren artean

Mendearen bukaeran, 2000ko apirilaren 6an zientzialarien mundua hankaz goiti gelditu zen, aho zabalik, aldi berean ikertzailea eta enpresa gizona zen Graig Venter jaunak, Celera Genomics enpresaren izenean aditzera eman zuenean giza genoma **atalka** identifikatua zuela eta konputagailu multzo bat lanean ari zela datu horiek guztiak lerroan eta hurrenkeran jartzeko. Pello Salaburu

2 ***atalkako zuzenketa*** *(**20** agerraldi **9** artikulutan)* zuzenketa partziala.

Hain justu ere, Sozialista Abertzaleak taldeak 7 **atalkako zuzenketa** aurkeztu dizkio testuari, EAJk 17, EAk 42 eta EB-IUk 69. Berria - Euskal Herria

Eztabaidaren hasieran iragarri zuen **atalkako zuzenketen** bitartez defendituko zutela euren proposamena. Berria - Euskal Herria

Atalkako zuzenketak eztabaidatzea eta osoko bilkuran eztabaidatuko den azken txostena egitea. Berria - Euskal Herria

Aste honetan, EAJren legebiltzarkide taldeak Eusko Jaurlaritzaren Estatutu Proposamenari **atalkako zuzenketak** aurkeztu dizkio. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
atalkako zuzenketa (3); **atalkako zuzenketak aurkeztu** (4); **atalkako zuzenketen eztabaida** (3)

---

atalkatu, atalka(tu), atalkatzen du *ad* atalka, kapituluka eman.

Hau gizon bat bada du izenbururik ospetsuena), eta bizitza bat kontatzen digun, ez gehiago eta ez gutxiago, elementu kimiko askotarikoen izenburua daramaten hainbat ipuinetan **atalkaturik**. Juan Garzia

---

atalo (irud/hed soilik) *iz* aho txikia eta ezkatarik gabeko azal grisa duen itsas arraina, gorputza isatsik gabea eta luzea baino altuagoa duena *(Mola mola)*.

Izututa gelditu nintzen **atalo** aurpegi hura ezagututa. Koldo Izagirre

---

atalondo *iz* atearen ondoko tokia.

Salomonek erre-opariak eskaintzen zituen Jaunarentzat, **atalondo** aurrean eraikia zuen aldarean. Elizen arteko biblia

Sala handiaren aurreko **atalondo** aitzinean ezarri zituen Hiramek zutabeak. Elizen arteko biblia

Jaunaren etxeko barne-atarira eraman ninduen eta, tenpluko sarreran, **atalondo** eta aldare artean, hogeita bosten bat gizon ikusi nituen, bizkarrez Jaunaren tenplurantz eta aurpegiz ekialderantz. Elizen arteko biblia

Geltokiaren **atalondo** handian ezkutatu nahi nuen, baina ez nekien non. Fernando Rey

Poltsikoan giltza bilatu zuen, mendeak zituen ate astun eta irekitzen zaila bultzatu, **atalondo** zabala gurutzatu eta olio-lanpara batek juxtu-juxtu argitzen zuen eskailera gangadun heze baten oinean gelditu zen. Xabier Olarra

Santutegipe eta Gaintzuri herrixketatik iragan ziren, eta hamaika emakumeren aurpegi tristeak ikusi zituzten **atalondo** ilunetatik haiei begira. Agustin Otsoa

Errepidez luze ibili, eta, aldapan gora denbora batean joan eta gero, taxia **atalondo** erdi ireki baten aurrean gelditu zen. Juan Kruz Igerabide

Harmaila igo behar ziren, eta **atalondoa** azkenean zegoen. Josu Zabaleta

Agure txikia agertu zen **atalondoan**. Monika Etxebarria

Hor zeuden ere haiekilan, Aita Sainduaren gelako **atalondoan**, Inkisizioaren Ofizio Sainduko jaun kardinale ospetsuak eta zorioneko familia guztia, etorri zena, erran orduan, Inkisizioaren bilkura egin ohi den lekura. Piarres Xarriton

Atalondoaren luzera hamar metrokoa zen, eta zabalera seikoa. Elizen arteko biblia

Atalondoko ateak itxi zituzten eta argiak itzali; ez zuten intsentsurik erre, ez erre-oparirik eskaini Israelen Jainkoaren tenpluan. Elizen arteko biblia

Areto nagusiaren inguruko hormek harlanduzko hiruna erreskada eta zedrozko ohol-erreskada bana zituzten, Jaunaren etxe barruko aretoaren eta **atalondoaren** tankerara. Elizen arteko biblia

Atalondora sartu zen, freskurara, eta ehiza-zainari makila eta kapela eman zizkion hitzik esan gabe. Xabier Olarra

Tenpluko **atalondora** eraman ninduen gizonak eta neurtu egin zuen: sarrerako hormek, atearen bi aldeetakoek, bi metro eta erdiko lodiera zuten, ateak zazpi metroko zabalera eta atearen muntagek metro eta erdiko zabalera bakoitzak. Elizen arteko biblia

Argia itzali, **atalondotik** atera eta eskailerak igo nituen, poliki. Fernando Rey

Iparraldeko atearen sarreran, **atalondotik** kanpo, baziren beste lau mahai ere, bina alde bietan. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
atalondoa barne (3)
atalondoak kanpoko atarirantz (3)

---

ataltzain *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* atezaina.

Orain, dena berriro hasi behar, ez dugu inoiz amaituko -jarraitu zuen, ohol bat hartuta, gela konpontzen ari ziren **ataltzainari** eta Georgeri laguntzeko asmotan. ETC-literatura, saiakera

---

ataltze *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi) iz* ataletan banatzea. ik **desaguaze**.

Autoak **ataltzen** dihardugu hemen, ez lapurtutako materialen salerosketan. ETC-literatura, saiakera

Autoen tailer eta **ataltze** lekuak ere banantzen hasi ziren: olioa, kristalak, pneumatikoak, plastikoak; orain guztia birziklatzen da. ETC-prentsa

Gero, aireportuko segurtasun eremua inguratuta, Larrinoa auto **ataltze** tokira iritsiko gara. ETC-prentsa

Horrela ikusiko dituzu milaka gizon txiki ontzi izugarri handiak **ataltzen** inolako ekipamendurik gabe. ETC-prentsa

Hortik ihes egiteko, autoak **ataltzeko** leku batetik piezak hartu, eta Monster Car autoa egingo du. ETC-prentsa

1991ko ekaina, draga-ontzia San Pedroko kaian utzita egon ondoren, Portuko Autoritateak bere **ataltzea** iragarri zuen. ETC-entziklopedia

---

ataman *iz* buruzagia.

Nekazarien **atamana** da, eurek hautatu dute buruzagi. Pablo Sastre

---

atara ik **atera**.

---

ataraxia *iz* Antzinako Greziako filosofo batzuek garatutako kontzeptua, arimaren erabateko lasaitasun egoera bilatzen duena.

Bere gorputzaren ongizateak greziar epikuroarrek eta estoikoek **ataraxia** deitu ohi zuten bikaintasun eta oreka intelektualezko egoera horretarako prestatzen zuen, sinesten ez duenaren paradisua, alegia. Josu Zabaleta

Hemen ere behiak alhan: abere hauen gostua Grekoen **ataraxia** bezain finkoa daiteke. Piarres Aintziart

-Zoriona da **ataraxia**. Karlos Linazasoro

---

atari **1** *iz* baserri, eliza eta etxe baten sarbidea, nahiz eraikuntzaren barnean, nahiz kanpoan. ik**ataurre**, **atarte**; **apiriku**.

Bilatu **atari** bat, zabaldu eta sartu barruan! Antton Olano

Atari bat hautatu berria nuen, baita, atezaindegi estuko emakumeari egunon erranda, igogailuz aupatu ere bigarren solairuraino. Aingeru Epaltza

Ana nire aldera biratu zen: **atari** barneko argiak begitara ekarri zidan haren bisaiaren iluna. Aingeru Epaltza

Anbulantzia **atari** parean zegoen esperoan. Aingeru Epaltza

Zutabedun **ataria** ere egin zuen; hogeita bost metro zen luze eta hamabost zabal. Elizen arteko biblia

Honen aurrean zutabedun beste **atari** bat ere egin zuen, bere aterpe eta guzti. Elizen arteko biblia

Apaizen **ataria** eta beste **atari** handiagoa egin zituen, bere ate eta guzti; ateak brontzez jantzi zituen. Elizen arteko biblia

· **Atariko** oihalak, zutabeak eta oinak, atari-sarrerako oihala, **atariko** sokak eta hesolak; elkarketa-etxolaren egoitzako zerbitzurako tresna guztiak. Elizen arteko biblia

Atariko oihalak zutabe eta oinekin, **atari**-sarrerako oihala. Elizen arteko biblia

Testuaren muina laburbiltzen zuten bortz **atari**-lerro ortodoxoak goian utzirik, kurtsoreari beheiti eginarazi nion pantaila berde minean. Aingeru Epaltza

Artean eguerdia izanagatik, puta dezente zegoen **atari** eta kale-kantoietan. Anjel Lertxundi

Atari hartatik bertatik sartu ginen etxe barrura, zaindarien begirada ernearen pean. Jon Muñoz

Ekialdera jotzen duen barne-**atariko** sarrera itxirik egongo da sei lanegunetan, baina zabalik larunbat eta ilberri-jaietan. Elizen arteko biblia

Hantxe zeuden zeru grisa, mendi berdea, diana zuri eta beltza, sukalde **atariko** txolarre arreak. Bernardo Atxaga

Haiek uste zuten ezen aurrean zutena neska gaixo bat zela eta, beraz, **atariko** haizeari baino jaramon gutxiago egin ahal ziotela. Irene Aldasoro

Gizonak ataria neurtu zuen, eta kanpoko **atariko** lehen ataurretik barneko **atariko** ataurreraino berrogeita hamar metro zeuden. Elizen arteko biblia

Etxola inguruan zegoen **atariko** eta atari-sarrerako zutabeen oinak, eta egoitzako eta **atariko** hesolak. Elizen arteko biblia

Atariko koxketara begiratu zuen; hutsik zeuden; oihalera begiratu zuen; lausotua zegoen. Anton Garikano

Iturriaren inguruko zementuzko koskatik kanpora irtenik, **atariko** zoruan irristan ibiltzeko leku leun bat osatu zen. Juan Kruz Igerabide

Sethek **atariko** atea zabaldu, eta portxeko eskaileretan eseri zen. Anton Garikano

Atariko bazter ilun batean zegoen, eskaileretan gora begira. ik atariko. Irene Aldasoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Behere hartan, berriz, nekez ikusteko moduan, "La Gallarda"ko **atari** arkudun eskerga zegoen. Txillardegi

Morroiak arkupeetan barna jarraitu zuen, kantoi batetik sartu, etxe handi batean ateari bultza egin eta argiontzi handi batek argituriko **atari** dotore batean sartu zen. Koro Navarro

Atetik sartu ginenean, emakume zahar bat ikusi genuen arroza garbitzen, zementuzko oin batean kokaturik zegoen kanilaren azpian, **atari** estu bateko izkina batean. Juan Kruz Igerabide

Elizaren ondo-ondotik igarotzean, ezer aipagarririk ez zuela ikusi zuten: **atari** zabala zuela besterik ez, estalpe handi batek babestua. Aitor Arana

Gainerako guztiak irteerako ateetara zihoazen bitartean, bera **atari** nagusian marmolezko eskaileretan gora joan zen, Hermionek garbi ikusteko moduan. Iñaki Mendiguren

Harmailetan gora igo eta hutsik zegoen **atari** nagusira sartu ziren guztiak. Iñaki Mendiguren

Apur bat geroago leihoan zeudenek iragarri dute, eta neronek ere laster igarri dut argi aldaketa zela-eta, gangadun **atari** gisako baten erditik sartu garela. Urtzi Urrutikoetxea

Atari ilun, bi orrikoaren aurrean, atezain uniformatu sendo-sendoa zegoen zutik, beroki luze, hondar-koloreko bat soinean, eta beroagatik ere hartz larruzko txano beltza. Matías Múgica

Emazteak barrika handiei atxikiak, arratsean, **atari** ilunetan, burdinazko kriseilu zaharrekin. Koldo Izagirre

Sarrerako **atari** freskoan hanka jarri orduko, ahots bat entzun zuten. Iñaki Mendiguren

Arlotea gizon herabea zen eta bere ile eta bizar kizkurrak histuak zitzaizkion, **atari** zabalean ibiltzearen ondorioz. Lopez de Arana

Berriz ere lepoan hartu, eskaileretan behera eta zuzenean kanpora, **atari** zabalean. Urtzi Urrutikoetxea

Mutikoek bizikleten txirrina jotzen zuten eta pedalei eragiten zieten, gurpilen kirrinka hotsekin **atari** eguzkitsuetan txutxumutxuka ari ziren emakumeak ikaratzeko; Andre Madalenen ahaide eta lagunen oin-arrastoak zeuden edekanaren, soldadu-buruaren, zerga-zainaren eta sindikoaren jauregietako **atari** elurtuetan. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

Komisariako **atari** aurrean bi auto ikusi zituen, aparkatuta. Pedro Alberdi

Ikusi orduko automobila **atari** aurrera eraman zuen. Migel Angel Mintegi

Etxe **atari** aurrera iritsi ginen. Jon Maia

-Eta bere buruaz beste egin badu -galdetu zuen Agustinak, Leirerekin etxe barnean baina **atari** ondoan zegoela. Aitor Arana

Atari ondoan ezkutatu zen. Migel Angel Mintegi

Atariko oihalak zutabe eta oinekin, **atari**-sarrerako oihala. Elizen arteko biblia

Iruñea guztiak zekien apezpikuaren **atari**-zakur horiek haren jelos zirela, ezin barkaturik-eta haren ele ederra eta harengana hurbiltzen ziren emakumeen suspirioak. Aingeru Epaltza

Irakasleek beti zuten aitzakiaren bat korridoreetan berarekin ibiltzeko, eta Percy Weasleyk (Harryren ustez, bere amak aginduta) alde guztietara segitzen zion, handiusteko **atari**-txakur batek bezala. Iñaki Mendiguren

· Joanekoan babestutako etxe-**atari** berean babestu zen ostera. Pedro Alberdi

San Bizente eliz **atari** pareko "Korreopia" sagardotegiraino joan naiz, Ikatz kaleko izkinan. Txillardegi

4 irud/hed

Neskaren bular oparoetara zuzendu nuen, segidan, argia, eta plazer sakonagoen **atari** biguin hartan hondoratu nuen nire burua, harik eta nire irudimena neskaren soinekoa jasotzen hasi zen arte. Anjel Lertxundi

Heriotzaren **atari** gozoan banengo bezala, nire odolaren zaporea sudurretik ahora sartu zitzaidan eta harekin mozkortu nintzen. Jon Maia

Kontatu nahi denaren ikuspuntutik munta handikoa da jakitea ezen, garai haietan, menturazale, txerpolari, errekaitu-saltzaile, buhame, ijito eta mota guztietako petral saldoek mukuru betetzen zutela Amazonian sartzeko **atari** zen San Oximoron herria, Oximoron Leibnizbarrutia idazle famatu zenaren oroimenez horrela deitua. Jon Alonso

Milioika espermatozoide geratzen dira emearen **atari** inguruan barreiatuta. Hasier Etxeberria

5 ***atari-aurre***

Aitaren lan-jaka zikina ez zen aurrerantzean zintzilik izan etxeko **atari-aurrean**, eta haren pipa-usain sarkorra ere nekez lerratzen zen orain zoko guztietara. Mirentxu Larrañaga

Gau hartan buruz askotan kalkulatu bezala, **atari aurreko** eskailerak -harrizko eskailerak- jo zituen bete-betean. Aitor Arana

6 ***atari-txakur***

Haien tour de force-a otomandar esklabo-etxea zen: hau da, giza **atari-txakurrak** hartu eta trebatzea padishah-ren giza ganadua ordenan edukitzeko. Iñaki Mendiguren

7 ***atari zabalean***

Edozein egoeratan, garrantzitsuena ondo garbitzea da (aska paraleloen lerroa burdinazko hodi zulatuekin, **atari zabalean**, errepidera ematen zuen esparruko aldean). Urtzi Urrutikoetxea

Beltzaran zeuden bi-biak eta ile horia zuten, **atari zabalean** ibiltzearen ondorioz koloregabetua. Lopez de Arana

Orain arte, Erriberriko Jaialdien garaietatik, **atari zabalean** egin dira ia beti emankizunak, eta horrek eman die, neurri handi batean, nortasuna. Berria - Kultura

Denen artean pintura modernista handia osatzen dutela iruditzen zaio: murala **atari zabalean**. Alberto Barandiaren

Atari zabalean geunden eserita, eta ia hamarrak ere baziren, hots, erretiratzeko ordua, biharamunean goizean goiz abiatzeko asmotan baikinen. Joxe Austin Arrieta

8 *web atari* (*6* agerraldi, *6* artikulutan)

Web-atari berri bat eraikiko da, lau hizkuntzetan, orain arteko web-gunea baino zabalagoa, elkarteeri eta publiko zabal bati idekia izanen dena. Herria

Euskal literaturari buruzko beste bederatzi webgunerekin batera dago Euskal prentsaren lanak Susa argitaletxearen Armiarma **web atarian**. Berria - Harian

Osasunerako eta ingurumenerako kaltegarri izan daitezkeen produktuen zerrenda osatu du Espainiako Greenpeacek eta bere **web atarian** (www.greenpeace.es) jarri du. Berria - Gaiak

Euskal Herriko metal musikaren berri zabala izan nahi duenak Interneteko Herriko Burdina (www.herrikoburdina.net) **web atarian** dauka informazio iturri nagusienetako bat. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atari aldera (4); **atari aurrera** (5); **atari bat zabalduko** (3); **atari batean** (12); **atari bateko** (3); **atari baten** (3); **atari edo** (5); **atari handi** (3); **atari ilun** (3); **atari inguruan** (4); **atari inguruko** (3); **atari izan** (3); **atari nagusian** (4); **atari nagusira** (7); **atari nagusiraino** (3); **atari ondoan** (4); **atari parean** (4); **atari sarrerako oihala** (3); **atari zabal** (5); **atari zabalean** (7); **atari zabaleko** (3); **atari zakur** (3)

beste atari (5); **eliz atari** (6); **etxe atari** (7); **etxeko atari aurrean** (4); **interneteko atari bat** (3); **nintzen atari** (3); **triniti zabaldu atari** (5); **zabaldu atari bat** (5); **zegoen atari** (5)

ataria baizik (3); **ataria da** (5); **ataria egin** (3); **ataria ere** (5); **ataria garbitzen** (3); **ataria izan** (4); **ataria sortu** (3); **ataria zeharkatu** (3); **ataria zen** (4); **barneko ataria** (3); **baten ataria** (4); **egoitzaren ataria** (3); **eliz ataria** (7); **etxeko ataria** (4); **interneteko ataria** (3); **net ataria** (3); **zuen ataria** (4)

etxe atariak (3); **internet atariak** (3)

aldaketa politikoen atarian (3); **aretoaren atarian** (4); **aretoko atarian** (4)

atarian adierazi (3); **atarian agertu** (6); **atarian aurkitu** (6); **atarian azaldu** (3); **atarian bertan** (11); **atarian bezala** (3); **atarian bi** (5); **atarian bildu ziren** (3); **atarian bizi** (4); **atarian dago euskal** (3); **atarian dagoela** (5); **atarian dagoen** (5); **atarian daude** (5); **atarian dira** (3); **atarian egin zuten** (3); **atarian egindako agerraldian** (3); **atarian egon gaitezke** (6); **atarian egoten** (4); **atarian elkarretaratu** (3); **atarian elkarretaratzea egin** (3); **atarian elkartu ziren** (4); **atarian eman** (3); **atarian ere** (9); **atarian erredakzioa** (4); **atarian eserita** (8); **atarian ez** (4); **atarian gaudela uste** (5); **atarian gauden honetan** (3); **atarian gelditu da** (3); **atarian gelditu zen** (9); **atarian gelditu ziren** (3); **atarian gelditzen** (3); **atarian geratu zen** (12); **atarian geratu ziren** (8); **atarian geratzea** (3); **atarian geunden** (3); **atarian gizon** (3); **atarian hartu zuen** (3); **atarian hil** (6); **atarian ikusi** (7); **atarian iragarri** (4); **atarian izan zen** (3); **atarian jarri** (8); **atarian jarriko** (3); **atarian jarrita** (3); **atarian nengoen** (3); **atarian sartu zen** (3); **atarian topatu** (3); **atarian utzi zuen** (3); **atarian zain** (8); **atarian zehar** (9); **atarian zen** (3); **atarian zeudela** (3); **atarian zeuden** (14); **atarian ziren** (4); **atarian zutik** (5)

atsedenaldiaren atarian (7); **atzeko atarian** (3); **aurkako partidaren atarian** (3); **auzitegi atarian** (7); **auzitegi nazionalaren atarian** (5); **auzitegi nazionaleko atarian** (3); **auzitegiaren atarian** (12); **azaldu zen atarian** (4); **azken laurdenaren atarian** (3); **azokaren atarian** (6); **baina atarian** (8); **bake prozesuaren atarian** (4); **basque research atarian** (6); **bateko atarian** (3); **baten atarian dago** (4); **baten atarian egon** (9); **baten atarian gaude** (5); **baten atarian gaudela** (7); **baten atarian nengoela** (3); **baten atarian zegoela** (3); **baten atarian zegoen** (3); **batzarraren atarian** (3); **becen atarian** (3); **beltzaren atarian** (3); **bere etxe atarian** (7); **bere etxeko atarian** (4); **berri baten atarian** (20); **berriaren atarian** (9); **berrien atarian** (3); **bileraren atarian** (10); **bilkuraren atarian** (3); **binakakoaren atarian** (3); **bozketaren atarian** (3); **bulegoaren atarian** (3); **da atarian** (10); **daude atarian** (3); **dendako atarian** (4); **duzu atarian** (3); **edo atarian** (3); **egoitza atarian** (5); **egoitzako atarian** (4); **egoitzaren atarian** (13); **egunaren atarian** (8); **eliza atarian** (12); **elizako atarian** (3); **elizaren atarian** (8); **enbaxadaren atarian** (3); **enpresaren atarian** (5); **epaitegi atarian** (3); **epaitegiaren atarian** (4); **erlojupekoaren atarian** (3); **errekopako finalaren atarian** (3); **eskolako atarian** (3); **eskolaren atarian** (3); **espetxe atarian** (7); **etxearen atarian** (3); **europaren atarian** (4); **final atarian** (5); **finalaren atarian geratu** (6); **garaipenaren atarian geratu** (3); **gaztetxearen atarian** (3); **gelditu zen atarian** (3); **gerraren atarian** (3); **giroaren atarian** (3)

handiaren atarian (4); **handienaren atarian** (3); **haren atarian** (6); **hasieraren atarian** (4); **hauteskunde atarian** (4); **hauteskundeen atarian** (21); **heriotzaren atarian** (12); **historiko baten atarian** (3); **horren atarian** (8); **hotelaren atarian** (3); **hoteleko atarian** (4); **institutuko atarian** (3); **iraultzaren atarian** (3); **jardunaldiaren atarian** (7); **jauregiaren atarian** (4); **jauregiko atarian** (9); **joaneko partidaren atarian** (3); **kanporaketen atarian** (3); **kartzela atarian** (7); **kartzelako atarian gelditu** (3); **kartzelaren atarian** (3); **kongresuaren atarian** (5); **kontrako partidaren atarian** (4); **legebiltzarraren atarian** (4); **loriaren atarian geratu** (3); **manifestazioaren atarian** (5); **nafarroako parlamentuaren atarian** (5); **nagusiaren atarian** (5); **neguaren atarian** (3); **net atarian** (4); **norgehiagokaren atarian** (3); **olinpiar jokoen atarian** (5); **oporren atarian** (3); **ospitalaren atarian** (4); **ospitaleko atarian** (8); **partida atarian** (7); **partida baten atarian** (3); **partiden atarian** (4); **prozesu baten atarian** (5); **sarrerako atarian** (5); **tabernako atarian** (4); **tenpluko atarian** (4); **tourraren atarian** (5); **txapelketaren atarian** (7); **udaberriaren atarian** (3); **udaletxearen atarian** (6); **udaletxeko atarian** (9); **web atarian** (4); **zegoen atarian** (3); **zeuden atarian** (4); **zigorraren atarian** (3); **zituen atarian** (4); **zuen atarian** (5); **zuten atarian** (4)

atariaren aurrean (3); **atariaren aurrez** (3); **atariaren ondoan** (4); **atariaren parean** (4); **gure atariaren** (3)

etxe atarietan (4); **etxeetako atarietan** (4); **etxeko atarietan** (4); **etxeko bi atarietan** (3)

atarira atera nintzen (3); **atarira eraman ninduen** (6); **atarira heldu ziren** (3); **atarira heltzean** (3); **atarira iritsi** (12); **atarira irten zen** (8); **atarira jaitsi** (5); **atarira joan ziren** (3); **atarira sartu zirela** (3); **barneko atarira eraman** (4); **baten atarira** (4); **bere atarira** (3); **da atarira** (3); **eliz atarira** (4); **etxe atarira** (6); **etxeko atarira irten** (3); **iritsi ziren atarira** (3); **kanpoko atarira eraman** (3); **nintzen atarira** (3); **nire atarira sartu** (3); **sarrerako atarira** (3); **zen atarira** (5)

atariraino eraman (3); **atariraino iritsi** (4); **atariraino joan** (3); **atariraino lagundu zion** (4); **etxe atariraino** (5); **etxeko atariraino** (5)

atalondoak kanpoko atarirantz (3); **atarirantz jotzen zuen** (3); **kanpoko atarirantz jotzen** (3)

ataritik atera (3); **ataritik bertatik** (3); **ataritik irteten** (3); **ataritik kanpora** (3); **ataritik ortzimugara** (3); **eliz ataritik** (5); **etxeko ataritik** (4)

---

atariko 1 *izond* hasierakoa.

Kategorien ahalgarritasunaren **atariko** argipena, hauek apriorizko ezagutzak diren aldetik. Ibon Uribarri

· *(izen gisa)* Dena dela, aipatu izanak balio du esateko, ba ze, idazleak iritzi sendoa duela; Espainiako gerra Bigarren Mundu Gerraren **atarikoa** izan ei da. Edorta Jimenez

2 sarrera, hitzaurrea; zenbait lege edo arauditan, atalburu eta atalen aurretik ezartzen den sarrera argigarria.

Atariko apal hau dela bide, Patzikuren herra sobera larriagotuko balitz -Santa Barbarak gorde nazala elementuetatik-, Zurian Zirika-ko hitza jan ote duen gogoraziko nioke, Koldo Izagirrek, bere aldetik, argitaratu berri dizkion poesien **atarikoan** dio Perurena "zentzumenen poeta" dela beste deus baino lehen. Patziku Perurena

Portalisek asmo horrekin paratu zuen testu egokia gidari jarri dugu gure zereginean, aurkezle eta **atarikorik** bikainena berori izan dakigukeelakoan. Andres Urrutia

3 irud/hed

Atarikoa izan zen, gero elkarrekin, egongela bertan, egin zenutenaren **atarikoa** baizik ez. Hasier Etxeberria

Errepide zaharra hautatu du etortzeko, presarik gabetan, hemen aurkitu uste duen bizitza lasaiaren **atariko** bailitzan. Hasier Etxeberria

Erromatar erregimen inperialaren gaineko garaipenaren **atarikoa** izan zen indar-probak kristautasunean izan zituen ondorio desatseginak konparatiboki arinak izan ziren. Iñaki Mendiguren

Denboraldi luze hori -zeinetan barbaroen espiritua sakon hunkitu eta desitxuratu baitu zibilizazioaren eraginak, beronetatik kanporatuak izan zirelarik- "aro heroikoaren" beharrezko **atarikoa** da. Iñaki Mendiguren

Estatu unibertsalak, zibilizazioen azken fasetzat soilik hartu behar ote dira ala garapen berrien **atarikotzat**? Iñaki Mendiguren

Han ez zegoen funtsezko desberdintasunik deisten [...] eta ateisten artean, hauek Jainkoa ezeztatu zutelarik, naturaren burujabetasuna aldarrikatzeko **atariko** gisa. Iñaki Mendiguren

4 *atariko haize*

Eta kasu zipitzik ez **atariko haizeari** hitz egiten dioten jakintsu usteei. Anjel Lertxundi

Egia erran, **atariko haizeari** baino kasu gutxiago egiten nien nik ama gaixoaren aholkuei. Alberto Ladron Arana

Haiek uste zuten ezen aurrean zutena neska gaixo bat zela eta, beraz, **atariko haizeari** baino jaramon gutxiago egin ahal ziotela. Irene Aldasoro

5 *atariko proba*

Giroko **atariko proba** da hori, eta han sasoi ona erakusten dutenek, ondoren Giro ona egin ohi dute. Berria - Kirola

Trentinoko Giroa eta Romandiako Tourra izaten dira Giroaren **atariko proba** nagusi biak. Berria - Kirola

6 *atariko titulu*

Atariko Tituluari ezarritako zuzenketen eztabaida amaitu dute, eta Lehen Tituluarekin hasi dira. Berria - Euskal Herria

Sozialista Abertzaleak, berriz, proposamenaren lehen partea, **atariko titulua**, babesteko prest daude, baina ez gainontzekoa. Berria - Euskal Herria

Datorren astean **Atariko Tituluaren** zuzenketekin hasiko da eztabaida, beste tituluetakoekin jarraitu eta hitzaurrearen ingurukoekin amaituko da. Berria - Euskal Herria

Bestalde, Jaurlaritzaren Estatutu egitasmoaren **atariko tituluaren** bigarren eta zazpigarren artikuluetan jasota ez dauden hainbat zehaztapen gehitu ditu EAJk. Berria - Euskal Herria

atariondo *iz* atalondoa.

Purudun gizonak buruaz keinu bat egin zion bonetadun gizon argal bati, **atariondoaren** beste aldean egunkaria irakurtzen ari baitzen. Lopez de Arana

ataripe *iz* atariaren azpikoa.

Bien bitartean, ohea **ataripean** prestatzeko agindu zien Arete beso zuriak emakumeei. Juan Kruz Igerabide

Pentsatuko duzu, halaber, zer-nolako harriduraz eta bozkarioz hartu genuen zure anaia, handik ia astebetera, etxeko **ataripean** ate-joka agertu zitzaigunean. Mirentxu Larrañaga

Orbaizko atea zutik, baina Muniaingo elizako **ataripe** erromanikoa suntsituta, baita Artozkiko kanoi-ganga zorrotza ere. Edurne Elizondo

Afalostean **ataripean** nengoen hamakan etzanda garagardo edaten telefonoa hoska hasi zenean. Berria - Kultura

atariratu, atariratu, atariratzen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* da *ad* atarira eraman.

Oro har, denek ezkutatu nahi dute arazoaren iturburua eta nahiago azalekoa **atariratu**: Jaso-Azpilikueta, familia nafarra, euskalduna zen. ETC-prentsa

atarrabiar *izlag/iz* Atarrabiakoa, Atarrabiari dagokiona; Atarrabiako biztanlea.

Bihar beteko du Frantziak ezarritako espetxe zigorra, eta, Espainiaren esku utz dezaketelakoan, hilabete darama gose greban **atarrabiarrak**. Berria - Euskal Herria

Bada, agian, honetan ere, hostro beltxeko atera dela **atarrabiarra**. Iñigo Aranbarri

Jokalari **atarrabiarrari** ez dio taldearen mailak bakarrik axola. Berria - Kirola

atarramendu ik **atarramentu**.

atarramentu *(orobat **atarramendu** g.er.)* **1** *iz* zerbaiten ondorio edo onura ona edo txarra; funtsa, zentzua, gorabehera.

Orinoko ibaiaren ertzetan bizi diren amek, beren alabak malerus izateko jaio direla sinetsirik, haien **atarramentua** emakumeak jasaten ez dituzten herrialde hartako gizon basatiekin ezkontzea dela jakinda, inmolatu egiten dituzte erditu orduko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta nolatan ez pentsatu guk orain eskolako tontoen **atarramentu** hori idiot savant (edo nolabaiteko autista) izatearen tankerako kasu bat izan daitekeela? Iñaki Segurola

Nik hanka artetik heltzen badinat, ikusiko dun zer **atarramendu**..., edo botako haut ez dakit noraino. Pako Aristi

Katedralaren zoko ilun batean elkarri musuka, nik hunkitua nuen bihotza, erabat, hau nuelako gogoan: zer **atarramentu** izanen du honek? Fernando Rey

Javier Madrazo sailburuak Jaurlaritzan egindakoari "zurikeria" dariola salatu zuen Elkartzen taldeko adituak, **"atarramentu** bako adierazpen hutsak besterik ez dituelako egiten". Berria - Euskal Herria

Harreman horretatik zer **atarramentu** lortzea espero duzu zuk, eta zer eskaini diezaiekezu EHUko unibertsitarioei? Berria - Gaiak

Beste **atarramentu** bat izan zezakeen kontu hark guztiak, nik uste, bakoitzaren adina gorabehera. Oskar Arana

Liburu bat eman zuen argitara Pujol komisarioak "Marseilla zaharreko oroitzapenak" izenburuarekin eta han Proventzako poetaren **atarramentua** argi zezakeen datu garrantzitsu bat aipatu zuen. Joxean Agirre

Ederki, herorrek igarriko diok **atarramentuari**! Anjel Lertxundi

Gehiago jakin nahi nuen munduan gauzek izanen zuten **atarramentuaz**. Exekutibo dirugile edo dirugile exekutiboaren **atarramentua** jolas txoro edo umekeria gisa ikus liteke ("nik xenbaki gehiago", "nik beti gehiago"...), bai, baina baita zahardade goiztiar gisa ere. Fernando Rey

'Egon hadi zeruari begira!', egin ohi dio euskaldunak errieta ezer onik lortzeko **atarramenturik** erakusten ez duen morroiari, edo semeari berdin. Pako Aristi

Bereziki gustatu zitzaion ikustea udal erakunde askotan alkatea kudeatzaile hutsa zela, kolektibitatearen ondasunei **atarramentua** aterarazteko izendatua eta ordaindua. Bego Montorio

2 (izenondoekin)

Prozesu horrek **atarramentu** ona izan dezan, paradigma aldaketa bat behar da, Garapen Iraunkor kontzeptuaren eskutik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Minbizi hilgarriak ez baitu **atarramentu** onik. Jon Muñoz

Hasieran bizkorregi lortutako aberastasunak azkenean ez du **atarramendu** onik izaten. Elizen arteko biblia

Bakoitzak bere aldetik **atarramentu** onik ez zuten ateratzen, eta batzea erabaki zuten, eta fruituak segituan iritsi ziren. Berria - Kirola

Gurekin ez duk **atarramentu** onik aterako, Eustakio, gurekin ez zagok deus egiterik, ni nauk bakarra ordu estrak sartzen ez dituena, gu portuko ustelenak gaituk. Koldo Izagirre

Izan ere, guk ez dugu inongo saltsatan sartzeko asmorik, gisa horretako nahasteetan sudurra sartzeak ez baitakar **atarramentu** onik. Migel Angel Mintegi

Andre Ageda hartaz konturatzen baldin bazen, despedida emango zion Ignaziari, eta eskandaluak ez zion **atarramentu** onik ekarriko neskari. Koro Navarro

Baina haren etxean ez duk batere **atarramentu** onik izango: zeken hutsa duk! Jose Morales

Horra hor, zenbait "aberastasunen" **atarramendu** beltza. Koldo Zuazo

Zuek ez duzue nik baino **atarramentu** hobea. Juan Kruz Igerabide

Eta, noski, zigorra datorkio peskizak **atarramentu** onik atera badu. Pello Zabala

Koronelak aditu zuenez, Charlie Peaceful hura Mollyrekin batera ikusi omen zuten maiz, maizegi, **atarramentu** onerako, eta zentzuz jokatu nahi bazuen hura eragotzi beharra zeukala. Mirentxu Larrañaga

Atarramentu bera izan zuen Joanes Etxeberri saratarraren latina-euskara ikasbideak: Lapurdiko Biltzarrak ukatu egin zion, hari ere, argitaratzeko diru laguntza. Koldo Zuazo

Hitz multzo edo esaldi palindromoak bilatzea lan neketsua da, maiz askotan **atarramentu** gutxikoa. Iñaki Arranz

Herri hizkuntzan txertatutako esaera zaharrek igarria diote **atarramentu** probetxuzkoa homonimiari. Iñaki Arranz

Baina, azkenean, lehenago edo geroago, **atarramentu** berbera: bustiaren bisita. Pello Zabala

Ez dago **atarramentu** onik hemengo bazterretan. Hasier Etxeberria

Berriz murgiltzen zen istorio haien liluran, zeinek tarteka itxura dramatikoa hartu bai baina **atarramentu** txarrik ez zuten. Fernando Rey

Ahalegin handia egin behar izan duzu aitorpena zuk nahi bezala moldatzeko, eta ez duzu arriskuan jarri nahi **atarramentu** segururik ez duen abentura batean sartuta. Rafa Egiguren

Burke-ren orijinaltasun anglo-saxoniarra zera izan zen, ordea: **atarramenturik** praktikoena ateratzea lortu zuela zelta jatorriko bere irudimen haren ibilera deslaietatik. Juan Garzia

Ez da inor goraipatu behar, bere azken **atarramentua** ziur ez dakigun bitartean. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atarramentu ona (3); **atarramentu onik aterako** (3); **atarramentu onik izango** (3); **zer atarramentu izan** (3)

atarramentua izanen (3); **nolako atarramentua** (4)
beste atarramenturik (3)

---

atarri ik **atari**.

---

atarte *iz* ataria.

Atari edo **atarte** txiki batean agertu zen. Fernando Morillo

Falangistak agertzen ziren, **atarte** batetik edo edozein zutaberen ostetik enboskadan, lagunak bata besteagandik apartatu eta galdetzen ea zertaz ari ziren hizketan. Joseba Sarrionandia

Atarte zabaletik sartu eta, barruan, ardi larruzkoa ematen duen alfonbra zuria zapalduz sartu gara salara; hirurogei ardilarru lotuko ziren gutxienez hain zabala egiteko. Joseba Sarrionandia

Kristal hotsa entzun zen **atarte** aldetik, eta hirugarren pertsona baten presentzia hurrekoegiak intziriak eten eta sudurtzuloak zintzatzea eragin zion Eusebiari. Josu Landa

---

ataska *iz* uhatea, konporta.

Ibaiko ur maila jaitsarazteko eta bilaketa lanak errazago egiteko, ezbeharreko gunetik gorago kokatuta dagoen barradera bateko **ataskak** itxiarazi zituzten agintariek Berria - Mundua

Noeren bizitzako seiehungarren urtean, lurrazpiko itsasoaren iturri guztiak lehertu ziren eta zeruko **ataskak** ireki. Jose Antonio Mujika

Ate Beltzaren orri boteretsuak zabal-zabalik zeuden eta oste handia amildu zen bertatik, dikearen **ataskak** irekitzean askatzen den ur zurrunbiloaren antzera. Agustin Otsoa

---

ataskatu, ataska(tu), ataskatzen *ad* buxatu, emokatu.

Hor nonbait **ataskatuta** egongo dun...Deitu egion. Pablo Sastre

Beharbada, hobea izan zen larrugorriek lurrazpiko etxeari egindako gaueko erasoa: euretako asko enbor hutsetan **ataskatuta** geratu ziren, eta kortxoak bezala atera behar izan zituzten. Julen Gabiria

Hasieran, arrankatu ezinik nenbilela, futbolariaren andregaia sartzea izan zen motorra; gero, berriz, **ataskatu** nintzen hartan, andregai hura gurasoen etxetik atera eta Mikelekin bizitzen jartzea izan zen aurrerabidea. Xabier Mendiguren Elizegi

---

atasko *(ETCn **75** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **auto ilara**, **buxatze** eta **buxadura** agertzen dira) iz* hodi edo kideko batean, igarobidea oztopatzea, buxadura. ik **buxatze**; **buxadura**.

Ataskoa, berriz, Intzan (Nafarroa) egin zuen, auto ilara handiak sortuz. Berria - Kultura

Maider Lopezen 'Playa' eta **'Ataskoa'-ri** buruzko erakusketa Madrilen. Berria - Kultura

---

ataundar *izlag/iz* Ataungoa, Atauni dagokiona; Ataungo biztanlea.

Iban Urdangarin **ataundarrak** irabazi zuen saioko bertso onenaren saria. Berria - Kultura

---

ataundi *iz* ate handia.

Ataundia zabaldu zen, zaldi-kotxea patio handian sartu, zerbitzariak eskailera amaigabearen aurrean makurtu ziren librea soinean zutela. Xabier Olarra

---

ataurre *iz* ate aurrea; ataria.

'Ataurrea ere garbituko duzu? Joseba Sarrionandia

Egun batean, kamioi batetik hilak deskargatu zituzten kanposantuaren **ataurrean**. Joseba Sarrionandia

Manilov denbora luzea egon zen **ataurrean** zutik, begiekin britxkari jarraitzen ziola, urrunduz baitzihoan. Jose Morales

Ez ditiagu hire zain hiru ordu pasa pikoletoen komisaldegiaren **ataurrean**? Unai Iturriaga

Barre-zantzo lazgarriak entzun ziren aretoko **ataurrean**, eta Herio atera zen aretoaren hondo-hondoan zegoen kutxatzar batetik. Anjel Lertxundi

Ataurreko itzaletik Lucy ateratzen da eguzki argitara. Oskar Arana

Hemen behintzat Falangekoak ez ziren **ataurrera** etorri Cara al Solekin eta protestekin, beste lekuetan legez. Josu Landa

Gizonak ataria neurtu zuen, eta kanpoko atariko lehen **ataurretik** barneko atariko **ataurreraino** berrogeita hamar metro zeuden. Elizen arteko biblia

Biharamunean, haren **ataurretik** nindoala, etxean sartu nintzen; ordubiak-edo ziren, irakurtzen eta zigarro erretzen aurkitu nuen. Josu Zabaleta

Bakarrizketan geratu zen taberna **ataurrean**. Unai Iturriaga

Bide ondoan **ataurre** txiki bat zuen, burdinsare hautsi batez babestua. Lopez de Arana

Aurrera nindoan heinean ikarak nituen azalean, eta horma aurrera iritsi nintzenean, nire egoitza zabaleko **ataurre** itxira iritsirik, atea zabaldu eta barrura sartzeko minutu batzuk beharko nituela konturatu nintzen. Josu Zabaleta

Bide ondoan **ataurre** txiki bat zuen, burdinsare hautsi batez babestua. Lopez de Arana

---

ataurreko *iz* atearen aurreko aldea.

Urria, nolanahi ere, neguaren antapara gertatu ohi da: zubi edo atari, **ataurreko** eta ezkaratze. Pello Zabala

---

ataute *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi) iz* hilkutxa. ik **katabut**; **zerraldo**.

- Senarra hil zitzaidanean nire aldamenean eduki zintudan gau eta egun -esan zion Asunek-, nire bozkarioa izan zinen senarra **atautean** sartu nuenean. ETC-literatura, saiakera

Atautean ikurrina eta buzoa. ETC-literatura, saiakera

Nola jaitsi zuten **atautea**, nola atera zituzten sokak azpitik, azkar-azkar igota. ETC-literatura, saiakera

Atautetan gordetako gorpuzkien mututasun eternoaren oroitzapenak ematen zion hotzikara Osantzari. ETC-literatura, saiakera

Galiziara, Manuel Curros Enríquezen **atautearen** gainean heldu zen bandera Coruñako portura 1908ko martxoan. ETC-literatura, saiakera

Handik egun gutxitara, han zetzan, belus urdinez forratutako **atautearen** barnean, eder, otzan, fresko, baina kolagenoa gogortuta. ETC-prentsa

Ikusi izan ditut elizara ontziari besarkatuta sartu diren gizonak, baita berauekin batera **atauteari** eusten joan den andrazko bakanen bat ere, baina, emakumez osatutako andrarik egundo ez zait tokatu. ETC-prentsa

Pentsatzen nuen hiletak amaitu eta senideak etxeratutakoan, defuntuak **atautetatik** irten eta eskaileran gora joango zirela. ETC-prentsa

---

atautxi *iz* aitabitxia.

Leitzatik Goizuetako Bikainbordara joana nintzen, egun batzuk **atautxiaren** etxean iragotzera, eta nola ba etsi, tartean palentiren bat egin gabe! Patziku Perurena

Gero, 1690 urteko jaiotzan ez da godo konturik aipatzen; baina **atautxi**-amautxiak: [...]. Patziku Perurena

---

ataxia *iz* gorputzaren mugimenduen kordinazio falta.

Sistema bestibularraren eta zerebeloaren alde baten garapen okerrari loturiko **ataxia** sinple bati egozten dio Templek. Xabier Olarra

Hasteko, kolpe latz haren eraginez, **ataxia** sendaezin bat, zeinak "erregalo modura ekarri baitzidan gizon egiten nauen zer horri, barkatu, dale-fuego eragiteko behar erreprimiezin bat, behar lotsagarri bat". Karlos Linazasoro

Geroago azterketa neurologiko labur bat egin nion, zerebeloaren funtzioari eta oreka-kontuei jarriz bereziki arreta: egiaz **ataxia** apur bat aurkitu nuen, baina ez behar adinakoa, nire ustez, ibilera bitxi hura argitzeko. Xabier Olarra

---

ataza *iz* egitekoa, egin behar den gauza.

Inolako konplexurik gabe hasten dugun **ataza** gogor baina ederra da. Berria - Euskal Herria

Bada, egoera hori dela, Galeuscaten ekintza politiko bateratua behin betiko sendotzeko eta bultzatzeko gure erabakiak ondoko konpromiso eta **atazak** daramatza lotuta. Berria - Euskal Herria

---

ate *(ETCn **125.499** agerraldi)* **1** *iz* harresi, horma, pareta edo kideko batean, alde batetik bestera igaro ahal izateko irekidura; irekidura horretan kokatzen den pieza; zenbait kiroletan, bi zutoinek eta langak osatzen duten laukia.

Orpoetan jiratu, **ateari** kolpean tira egin eta hain gogor itxi zuen, ezen goialdean zuen kristaletako bat erori baitzen. Iñaki Mendiguren

Ez dago esaterik hura gelako **ate** honetatik sartzen ikusitakoan zer sentitu nuen. Hasier Etxeberria

Berehala ohartu nintzen delako **ate** hura aise bota zitekeela, nahiz zalaparta handia eginez behar zen bota. Jon Muñoz

Gero **atea** itxi zuen, bekatua egin izan balu bezala. Alberto Barandiaren

"Haizea dabilenean etxeko **ate** guztiak nekatzen dituk, harik eta azkeneko atea, atarikoa, trangaz ixten den arte". Anjel Lertxundi

"Ezin liteke", pentsatu nuen neure artean, arratsaldeko enkontruak susmo beltzenak burura ekarrita, eta **atea** zabaldu nuen. Inazio Mujika Iraola

Zakurrek, zakurtegietan burua **ate** aldera dutela egingo dute lo. Gotzon Garate

Kontuak kontu, zozomikote eta tenporekin bueltaka zebilen fraide batek ikusi omen ninduen aurrena, elizako **ate** ondoan, saskitxo batean. Jon Alonso

Atea itxita zegoelako edo, hozkirria sentitu zuen sarreran. Joxemari Urteaga

Ate bat ixtearekin, txilio ito bat etenda gertatu zen. Lopez de Arana

Horrela, trajea jaki-gordailuan gorde, **atea** giltzaz itxi eta alde egin zuen. Bego Montorio

Zirkinik ere ez zuen egin ondoko kalean auto batek, danba!, **atea** itxi zuenean, ezta bi hontz gainetik ziztuan igaro zitzaizkionean ere. Iñaki Mendiguren

Kafea amaitu dudala ikusi duenean, hitzik esan gabe altxatu, **ate** ondoko iltze batetik zintzilik dagoen giltza eskuratu eta gorantz abiatu gara. Iban Zaldua

Erredakzioko **atea** zabaldu nuenean aurrez aurre topatu nuen Mikel, nire bihotzeko Mikel, eta haren irribarre zoragarria ikusi orduko nire buruaren jabe egin zen lehengo lilura hura, lehengo obsesio hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Pauso malguz, neuk arestian bi giltza-bueltaz itxi nuen **ate** bera igaro zuen. Eskarne Mujika

Atetik hurbil, berrogeita hamar urtetsuko gizon bat eseririk zegoen, jilbaba bat soinean, eta gorbata batek luzarazten zion jauntxoek erakutsi nahi izaten duten lepoaldea. Patxi Zubizarreta

Martak dutxa azkar bat hartu eta salako **atearen** markoaren kontra bermatu zuen sorbalda, ile bustia ezker eskuan zuen toailaz igurtzitzen zuela. Harkaitz Cano

Estu xamarra, hamar bat metro: bi leiho eta **ate** bat erdian, balkoiaren luzeran; atzealderantz luze xamarra bazen ere. Txillardegi

Ate bat erakutsi zidan gero eta espantu handiak eginez iragarri zidan hantxe ziharduela Haneda jaunak, lehendakariak. Joxan Elosegi

Azkarki, ketan zegoen kafe-eltzea txapatik baztertu zuen, "nire kafea joan duk", eta giderretik hartzean berotutako eskuak galtzetan igurtziz, **ateko** sarrailak libratu zituen. Iñaki Zabaleta

Ainitzetan, orain, eguzki pixka bat delarik, **ate** aintzinean jartzen niz nere azietarekin... bazkaria prestatuta... Menane Oxandabaratz

Atearen ondoan egin du, apur bat barrura begira egon ondoren. Pako Aristi

Planoaren azken aldera, ordea, kamera finko geratzen da bat-batean, aski luzaro, pertsonaia bat sartu eta desagertu den **ate** bati begira. Josu Zabaleta

Beraz, **atea** xaloki bultzatzen zuen bezeroa isekarik handiena iruditzen zitzaien. Joseba Urteaga

Malene logelan egon zitekeen, pianoari eragiten, hain urrun **ate** itxiaren atzean, baina etxea bete egiten zuen, hormetan barrena usain antzeko bat helaraziz, hain argia, hain egiazkoa, hain biziz betea. Lander Garro

Atea itxi eta argia piztu nuen. Anjel Lertxundi

Taibelek ez zuen **atea** morroiloz itxi; hiri hartan ez zen lapurrik ezagutzen. Koro Navarro

Atean bertan gelditu zen orduan ere, garra dardarka zuen kandela bat eskuan; ile urdindu nahastuek eta kamisoi luzeak agerpen baten itxura ematen zioten. Ander Irizar

Gure hamalauren alboko **atean** bizi den gaztea drama bera bizitzen ari daiteke, ordea. Joxerra Garzia

Tazitok dioenez, germaniarren artean sakrilegioa zen inori etxeko **ateak** ixtea, ezaguna nahiz ezezaguna izan. Iñaki Iñurrieta

Gizartean **ate** guztiak zabalik zituen gazte arrakastatsua gizarteko baztertuen aldera igarotzen da oso-osorik. Askoren artean

Tokirik baketsuenetan ere, irakurtzen da De Cive-n, jendeak gauez etxeko **ateak** ixten ditu, ezpata eramaten du gerrian, beldur dira besteek ostu, edo gezurra esan diezaieten. Esteban Antxustegi

Norbaitek jo zuen merkatariaren **atean**, bazkalondoan. Imanol Zurutuza

Baina Jemek ez zuen komuneko **atea** guztiz itxi eta neska txizaginean entzun zuen Ralphek. Patxi Zubizarreta

Emakumeak irriño bat eskaini zien **ate** ondoko guardiei, eta hauek izenez agurtu zuten bera. "Adios, Felisa" entzutea iruditu zitzaion Josu R-ri, emakumearen irudia jadanik haren bistatik kanpo. Pedro Alberdi

Bulegora sartu gabe, burua arrimatu dut **ate** ertzetik. Xabier Etxabe

Burdinazko **ate** baten giltzapean. Eider Rodriguez

Mikelek justu-justuan lortu zuen Somera kaleko 13ko **atea** zabaltzea. Unai Iturriaga

Etorberriak nire aldeko gibel **atea** ireki zuen. Aingeru Epaltza

Libertinoegia izan naiz logelako **atean** gelditzeko, harroegia faboritoei, ministroei edo maitaleei losintxak egiteko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gurasoek alde egin bezain azkar, **atearen** zirrikitu batetik sartu zitzaizkizun bezperan askatu nahi izan ez zenituen korapilo guztiak, Damian. Hasier Etxeberria

Kristalezko **atea** hankarekin bultzatu eta, sartzera zihoan haur bati nola edo hala izkin egin ondoren, krema koloredun espaloian behera jo zuen. Aritz Gorrotxategi

2 irud/hed

Kritikoen ustez, haur literaturako modernitateari zabaldu nizkion **ateak**. Ana Urkiza

Bakarrik oroitzapenei idekiko diet **atea**, Pandoraren ontzian erdi lo dauden mamuek airea har dezaten. Piarres Aintziart

Euskara Batua izateak, idatzizko zereginetan inolako eragozpenik gabe erabili ahal izatea ekarri zuen, eta euskara kultura hizkuntza izateko **atea** ireki zuen horrek. Koldo Zuazo

Azken batean, berebizikoa da gure eguneroko martxan, mundua ikusteko dugun **ateetako** bat. Iñigo Aranbarri

Norberak irekitzen baititu astiro-astiro iraganeko **ateak**, oraina zein geroa irentsiko dizkion munstroa sar dadin. Markos Zapiain

Zeren arbuio doilorra eta txirotasun mingotsa biziera gozo eta egonkorraren arerio eta heriotzaren **atean** gelditzea bezala direla uste ohi baita. Xabier Amuriza

Eta, batez ere, jakituriaren **ateak** zabal ditzakeen jakin-minaren neurria ematen du. Anjel Lertxundi

Bi gizon sonatu hauetako lehenengoak **ateak** ireki zizkion zabal-zabalik gogoberotasunari, zeren behin eskuduntza lortu ondoren arrazoimena ez baita neurritasunaren gomendio indeterminatuen bidez zedarriztatzen uzten, Ibon Uribarri

Baldintza horiekin metafisikako **ateak** betiko itxita gelditzen dira. Askoren artean

Eta jaisten ari nintzen ahala oroimenaren **ateak** ireki zitzaizkidan bat-batean, erauntsiak jota bezala, eta betierean gordeta izan nituen oroitzapenak aske geratu ziren eta nirekin batera Felipe Juaristi

Antropologia ikuspegitik norbaitek arrazoirik aztertu nahi balu, **ateak** zabalik dauzka. Andoni Egaña

Beste etxeekin gertatzen ez den bezala, etxe hau etxe irekia da, hizkuntzaren erabilerak jartzen dizkion **ateek** bakarrik zedarritua. Pello Salaburu

3 (izenondoekin)

"Maite zintudan", irakurri zenion, hozkailuaren **ate** zurian hori. Joxerra Garzia

Kartzelako **ate** beltzak zabaltzen miretsi zituen polizien furgoi blindatuaren barnetik. Itxaro Borda

Ate handia zabalik zegoen; handik eta leihotik sartzen zen eguzkiaren errainuek gela argitzen zuten. Juan Kruz Igerabide

Beste moja bat agertu zen, oso gaztea, **ate** txiki batetik. Anjel Lertxundi

Ordu berean, hiriaren beste puntan, supermerkatu batetik irten berria zen azken langileak kolpe lehor eta bortitz batez ixten zuen egoitzako **ate** nagusiko pertsiana metalikoa. Josetxo Azkona

Ate automatikoan zehar irteten diren guztiak ikusi ahal izateko distantzia aproposean zutabe baten ondoan gelditu denean, igarotako urteen zamak lasaitu egin du berehalakoan. Lourdes Oñederra

Ezker-eskuinetan **ate** nabarrak ziren eta lurrean koadrodun baldosa merkeak, koskekin batzuk, zikinune arrez beste batzuk; hotelaren gainbeheraren zantzu nabariak. Iñaki Zabaleta

Bestea logela da eta **ate** estu bat du, komunekoa. Xabier Paya

Osabak poltsikotik giltza bat atera zuen ezkerraldeko **ate** sendoa irekitzeko. Aitor Arana

Hainbeste korridore eta **ate** dotoreren artean, ez da erraza izaten jauregietako komuna topatzea. Hasier Etxeberria

Aspaldian begistatua nuen borda zaharra, bere **ate** akitua, ezker, kurrinka goxo batean dabilela, teilatuaren hegiak bonet higatu baten aterbe miserableak itaxura nasaiki ixurtzen duelarik bortaren zur gorri arraildua. Piarres Aintziart

Ate handi pisutsua... sartu eta dena ilun, beti ilun gomutatzen dut. Sonia Gonzalez

Hozkailuko **ate** grisa zabaldu orduko, ordea, oihu zorrotza egin du. Patxi Iturritegi

Gaizkile itxurako tximaluze handi hark, gurera etorri zen lehenengoan, ez zuen astirik alferrik galdu berriketa edo itxurakeriatan. "Zer moduz, mutilak?" esan zigun eta logelan sartu zen, gu hirurok **ate** itxiaz bestaldeko sofa ajatuetan etzanda utziz, telebista lagun. Jon Arretxe

Txatarrategiko nagusiak bere biltegian egurrezko ur berogailuren eta sutegi zaharren puskak saltzen zituen, eta bizikleta puskak eta automobil puskak, eta burdinazko **ate** zaharrak. Pello Lizarralde

Zinemak, jolas-aretoak, tebeoak aldatzen zituzten dendak, taberna dotoreak, **ate** gorriko klub badaezpadakoren bat edo beste begietaratu zitzaizkidan kalerik kale nenbilela. Javi Cillero

Hilerriaren sarrerako burdinazko bi **ate** beltzei begira geratu nintzen. Juan Luis Zabala

Ate metalikoa ixteko zaratarekin, adibidez: horregatik daude txerritegi industrialetan plastiko bigunezko ateak. Edorta Agirre

Herri zaharraren harrizko gerria **ate** arku-zorrotzen bidez zabaltzen da hainbat lekutan; beste batzuetan irregulartasunez hausten da, egunetik egunera handitzen ikusten den zulo bat utziz. Koro Navarro

Gogoan dut noiz sentitu nuen aurreratzen nintzela nire gaitasun literarioan: Françoise Sagan-en Bonjour Tristesse hartu eta lehen orrialdetik liluratuta geratu nintzenean; liburu hura desberdina zen, zoragarria, eta, batez ere, helduen munduko **ate** misteriotsuak zabaltzen zitzaizkidala sentitu nuen. Ana Urkiza

Gizonezko honek plazako saltzaile bat iduri zuen **ate** beiraztatu batetik harrituta behatzen genion umeondako. Koldo Izagirre

Barren-barrenean, Luziferren tokian, **ate** tolesgarrien tankerako zerratura gotor bat zegoen; haren azpian, putzu bertikal bat, zeinak galeria horizontal luze batera ematen baitzuen; hura, berriz, muino-mazelara irteten zen egurats zabalera, lantokitik gora. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure etxean sekulako eztabaidak egiten ziren politikaz, azkenean beti berdin bukatzen zirenak: haserrealdiak, airera botatako ezpain-zapiak eta etxe osoa burrunba-hotsaz betetzen zuten **ate**-danbatekoak. Fernando Rey

Hurbileko hosto ihartuen arteko jauzi jostalarien ordez, gero eta hurbilagoko giltzen soinuak eta **ate** danbadak sumatuko; egunero altxaraziko zaituen sarrailaren zilo bortxatuaren ahuen garratza. Filipe Bidart

Errezelen eta **ate**-oihalen brokatuak, izur bikain-bikainekoak, gorrindolez koloreztaturik zeuden, eta haien tonu beroak bortizki hausten ziren oihal astunen angeluetan. Karlos Zabala

Aurpegiak, aurpegien moltso nahasia, aurpegien arteko berdintasuna, zarata, zalaparta zentzugabea - hain monotonoa, isiltasuna antzeratzen baitu -, eta erlojuak, kanpaiak, iratzargailuak, telefonoak, **ate** bigungarriz estaliak, igogailuko zurrumurruak, barreak, musika eroa, jasanezina. Eskarne Mujika

[...] iragan-minik edo inoren ausentziarik sentitu nahi - esan eta gizona besarkatu omen zuen, nahiz eta ez zeuden emakumearen etxean, hotel hotz batean baizik, eta bezperan arrapaladan armairuetan gorde zituen bere laneko jantzien aztarnak, gabardina distiratsu eta body estu edo barruko arropa koloretsuen dirdaiak, **ate** zirriztuetatik suma zitezkeen oraindik. Joxean Agirre

5 ***ate aitzin***

Zenbat egon ote nintzen **ate aitzin** hartan, eskaler hegiari itzatua bezala? Janbattitt Dirassar

Ate aitzinean gelditua, eztarria garbitu eta atea jo nuen. Alberto Ladron Arana

Zenbat egon ote nintzen **ate aitzin** hartan, eskaler hegiari itzatua bezala? Janbattitt Dirassar

Ate aitzinean gelditua, eztarria garbitu eta atea jo nuen. Alberto Ladron Arana

Lehoien pasabidea, eskailerak, burdinazko atea, kartierreko ibilbidea, zaintzaleak erdian, zaintzalea ene zeldako **ate aitzinean**, ezin sar, levez les bras! To, berritz? C'est bon, allez-y! Filipe Bidart

Lehergailua **ate aitzinean** ezarria zen. Berria - Euskal Herria

La Carioca deitzen den fonda xumearen etxekoandrearen irribarre goxoak, atarian sartzera nindoala, nago ez didan erakustera eman ene zai zegoela, haren **ate aitzinean** pasatua bainintzen, zaldiaren behortegirainoko azken urratsen kexu goxo berarekin. Piarres Aintziart

6 ***ate-albo***

Etxeko **ate-alboetan** ezarri zenituen idolatriazko zeure oroigarriak. Ni alde batera utzirik, biluzik jarri, zeure ohe zabalean etzan eta maitaleez aprobetxatzen zinen. Atsegin

zenuen haiekin oheratzea. Elizen arteko biblia

Ate alboan itxaron zuen. Xabier Montoia

Besterik jakin ezinik, gutxienez balizko lapurrak uxatzea pentsatu zuten, eta horretarako Kasimen gorpuarekin lau zati egitea erabaki zuten, eta lau zati haiek **ate alboetan** ezartzea, bi alde batean eta bi bestean. Patxi Zubizarreta

Ate-alboari heldua, hara han loroa! Jon Muñoz

7 *ate atzean bota* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ikaskizunok ez baitziren **ate atzean botatzeko** modukoak. ETC-literatura, saiakera

-Proposamena ez zuten **ate atzean bota**. ETC-literatura, saiakera

8 *ate automatiko*

Pixkanaka, multzokatuz doaz eta **ate automatikoaren** irekialdi batean hogei bat atera dira elkarren ondoan, elkarren segidan. Lourdes Oñederra

Gauean, polizia sartzear zela, **ate automatikoa** trankatu zuten presoek, modulura sarrera zailduz. Jokin Urain

Kontaktua piztu, eta garajearen **ate automatikoa** zabaldu dun. Iban Zaldua

Tapaxek errepide bazterrean kamioia nolabait utzi eta, arin-arin pasteleriara sartzera zihoala, **ate automatikoa** ikusi ez eta, kasik muturrekoa hartu zuen. Pablo Sastre

"Baliteke garajeko **ate automatikoa** konpondu behar duen teknikoa izatea. Patxi Iturritegi

9 *ate birakari*

Jantokitik etorrita, onddo-kapela marroiko gizon bat **ate birakaritik** sartu zen. Lopez de Arana

Lapurreta: polizia etorri, **ate birakariraino** iritsi dira, baina ez dira sartu. Josu Zabaleta

Maite nuen Excelsior hoteleko **ate birakarietan** ageri ziren metalezko osagaien distira. Oskar Arana

Urruti zegoen garai hura, zeinean bere amak, Benito iraintzeko, esaten zuen Donostia hartu zutenean artaxonarrek Diputazioko **ate birakaritik** sartu ezinean izan zituztela zauritu gehienak. Ramon Saizarbitoria

Autobus geltokira zihoalarik, Lucyk Maddalen errepidea pauso arinez zeharkatzen ikusi zuen, eta segidan pubeko kristalezko **ate birakaria** kemenez birarazten, The Union. Joxemari Iturralde

Gorrotoaren paroxismoan, nire besoa **ate birakari** baten moduan bultzatu eta oihuka hasi zitzaidan. Joxan Elosegi

10 *ate ertz*

Bulegora sartu gabe, burua arrimatu dut **ate ertzetik**. Xabier Etxabe

Metroan, Josebak eta Gregoryk hartu zutena baino bagoi bat atzerago jarri zen eta geltoki bakoitzean **ate ertzetik** egiten zuen jaisten zirenen zelata. Iñaki Zabaleta

Bizitzaren atea ireki nahi izan zuen, baina... **ate-ertzaren** kontra jo zuen, antza. Fernando Morillo

Burdinazko **ate ertzaren** aurka joan zenean ez baitzuen aurreraka egin, atzeraka baizik. Bernardo Atxaga

Ate ertzak giltzaren harat-honatekin urratu ostean erdietsi zuen bere helburua. Unai Iturriaga

11 *ate gotortu*

Han azaldu zitzaidan Espainia lehen aldikotz, eta bere etxe beltz, karrika estu, zurezko balkoi eta **ate gotortuekin** harritu ninduen ni, inperioaren kaoban hazitako haur frantsesa. Koldo Izagirre

12 *ate irekien jardunaldi*

"Deialdiak zenbaterainoko arrakasta izango duen badaki EHUko Errektoretzak, **ate irekien jardunaldia** ere atzeratu duelako», gaineratu zuen CCOOko Gonzalo Maestrok. Berria - Euskal Herria

13 *ate irristagarri* ate irristazailea.

Galeria txiki bat dirudi, erabat irekia, eta ate **irristagarri** batekin. Juan Kruz Igerabide

14 *ate irristakor* ate irristazailea.

Egurrezko egitura eta paperezko leihoak dituen ate **irristakorra**. Ibon Uribarri

15 *ate irristari* ate irristazailea.

Gela handiaren horman [...] ate **irristari** bat zegoen. Juan Kruz Igerabide

16 *ate irristatzaile* irristatuz higitzen den atea. ik **irristagarri 4; irristakor 3; irristari 3**.

Ate **irristatzaileak** erdi ireki eta zeharka begiratu zuen gela hotzera. Lopez de Arana

Gero gure atzean ate **irristatzailea** itxi eta kanpotik kolpe batzuk jo dituzte. Urtzi Urrutikoetxea

Bi eskuak erabili behar izan ditu ate **irristatzailea** ireki ahal izateko. Pello Lizarralde

17 *ate joka*

Norbait da **ate-joka**. Mirentxu Larrañaga

Idazlearen emazteak ekarritako abere eta giza sentimenduei buruzko kontakizun honekin ari nintzela agertu zen atezaina **ate joka**. Joxean Agirre

Minutu bat baino lehen, berriz ere **ate joka** ari ziren, oraingoan indartsuago. Jon Maia

Bazeramaten bost minutu **ate joka**, baina inor ez zetorkien zabaltzera. Josu Zabaleta

Ate joka hasten naiz. Eskarne Mujika

Komunean ere irakurtzen nuen, komikiak batez ere, inor **ate joka** agertu arte. Anjel Lertxundi

Bitartean, Pedrok **ate-joka** ziharduen. Ireki eta ikusi zutenean, zur eta lur gelditu ziren. Elizen arteko biblia

Iraultza guztiak **ate joka**, baina bera trankil etxe barruan, bere dotrina erakusten. Berria - Harian

Krisialdia **ate joka** sentitzen dute laborariek. Berria - Euskal Herria

Aitzakiak aitzaki, **ate joka** ekin diogu 2005. urtean hamaika proiektutan murgilduta ibili diren antzerkigileei, 2006. urteari begira izan ditzaketen proiektu eta ametsez galdezka. Berria - Kultura

Zeren poeta, urte askoan aberritik eta beronen hizkuntzatik aparte bizi ostean, bertara itzultzen baita, **ate joka**. Xabier Mendiguren Elizegi

Desioa **ate joka**, bizitzako esperientzia bizi eta atseginenetako bat bizitzera gonbidatzen ari zaigu. Luis Elberdin

Oihuak entzun zituztenek laster jakin zuten Ana zela logela guztietan **ate joka** zebilena ero hutsen moduan. Aitor Arana

Erlojuak ordua jo zuenean, **ate joka** ari zirela entzun nuen. Koro Navarro

Ate-joka ari ziren; Albert zen. Jon Muñoz

Ezin nuen asmatu zer eskatu nahi zidan, baina zernahi zelarik ere, okerreko tokira etorri zen **ate joka**. Anjel Lertxundi

Ate joka etorrikoak ordurako urruti behar zuela kalkulatu nuenean, maleta hartu eta aterantz abiatu nintzen. Anjel Lertxundi

Ate joka ari zara? Jose Morales

Hirugarrenik, emakumeak bisirra topatu zuen **ate joka**. Patxi Zubizarreta

Eta orbela kanpoan **ate joka**. Karlos Linazasoro

18 *ate kisketa* atean, deitzeko, izaten den metalezko mailu modukoa.

Jaiki zen, jantzi, eta deitu baino lehen zabaldu zuen atera, ate-**kisketaren** hotsa gogoratzeaz beldurturik. Josu Zabaleta

Ate-**krisketan** jarri du eskua ene maiteak: dardar dagit barruak. Anjel Lertxundi

· Ezker-eskuma jo zuen **kisketaz,** Antoniari sar zitekeela klabez ohartarazteko edo. Josu Landa

19 *ate-leiho*

Bi erregailu bota dituzte Hazparneko jandarmeriaren **ate leihoetan**. Herria

Eskuinean **ate-leiho** bat daukat, ene gelara ematen duena, izan ere gela bat baitaukat, eta gela honek atea dauka gainera. Koldo Izagirre

Ate-leihoak zabalik, gaueko hozkirriari itxaroten diot Ryder kanpoan dagoen bitartean. Javi Cillero

Herriak hilerri bat zirudien; etxe guzietako **ate leihoak** irekiak ziren, eta altzari, jantzi eta beste gauza batzuk ikus zitezkeen, karrikan abandonaturik. Elena Touyarou

Ate-leihoek hegoaldera jotzen zuten, eta hormak harea harriz eginak zeuden. Felipe Juaristi

Ate-leihoak itxi, eta etxeko bonbilla guztiak txiki-txiki egin zituen, inork koloreak lapurtuko zizkion beldurrez. Joxerra Garzia

Gau batez huna zer gertatu zautan. gau hura zen hain beroa, non ene etxolako **ate leihoak** idekirik utzi bainituen. Xipri Arbelbide

Gela handi bat zen, bulego izandakoa seguruena; balkoi batera ematen zuten bi **ate-leihoren** aurrean, mahai bat zegoen eta, haren inguruan eserita, hankak gainean jarrita, milizianoak. Inazio Mujika Iraola

Gortina beltz batzuek ostentzen zituzten **ate-leihoak**. Matías Múgica

Wanda Fordek larri, presaka **ate-leihoa** ireki zuen. Gotzon Garate

20 *ate logiko* *(corpusean ez dago; ETCn **259** agerraldi)*

Ate logikoa sarrera logiko bat edo gehiagorekin irteera logiko bat inplementatzen duen zirkuitua da. ETC-entziklopedia

Ez da lehen aldia bi qubit ondo kontrolatzen direna eta erabakigarriak diren bi qubiteko **ate logikoak** ezartzen direna. ETC-prentsa

Sistema informatikoen ahuldadeak giza okerretan oinarritzen dira: bai kodeak diseinatzerakoan, bai **ate logiko** eta fisikoak kudeatzeko orduan. ETC-prentsa

Gai honetan modelo hauek erabiliko ditugun arren, hurrengo gaiari begira, interesgarria da transistorearen modelo idealak ere erabiltzen direla aditzera ematea, bereziki **ate logikoen** portaera bilatu nahi denean. ETC-zientzia, zuzenbidea

1. maila: zirkuitu elektronikoek osatzen dute, eta haietan erregistroak, memoriako gelaxkak eta **ate** logikoak maneiatu behar dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Logika estandarra (off-the-shelf) edo **ate logikoen** matrizeak erabiliz eraiki ohi ziren minikonputagailuak mikroprozesadoreak erabiltzen dituzten zerbitzariek ordezkatu dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Funtzio horiek gauzatzea ahalbidetzen duten zirkuituei **ate logiko** deritze edo, laburrago, ate. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jostailuzko neuronak elkarrekin modu sinple gutxi batzuetara konekta daitezkeelako da hori, halako moduz non neuronak '**ate logiko**" bihurtzen baitira, alegia, dedukzioaren azpian dauden "eta", "edo" eta "ez" erlazio logikoak konputa ditzaketen gailuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Neurrira egindako automatismo kableatuetan (ASIC, Application-Specific Integrated Circuit) kontrolerako funtzio zehatza egiten da eta funtzio hori automatismoaren diseinu eta sorkuntzan erabiltzen diren erreleen, **ate logikoen** eta bestelako osagaien menpeko dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

21 *ate oste*

Zazpi nanotxoak **ate ostean** geratu ziren eta Edurnezuriri entzuten omen zioten hasperenka eskatzen: Esadazu gezur bat, Pinotxo, Orain egia bat, Orain gezurra, Orain egia, Orain gezurra, Orain egia, Orain gezurra... Joseba Sarrionandia

Ibiltzen naizela!, **ate osteko** ezezagunaz, errezel atzekoaz, armairu barrukoaz, ohe azpiko ezezagunaz naiz beldur. Josu Zabaleta

Zientziatik begiratuz, zientziagaien **ate osteetan**, zirrikituetan, ez daude adigai zientifikoak besterik. Jenaro Garate

Eta egia esan ni segur nengoen mihiaren haria eteteko eman zigula brandy botila kapitainak, **ate ostean** egonen zen gure solasa entzuten, goitikako aginduek ematen ez zioten arrazoi moralen bat behar zuelako gizajo hura fusilatzeko. Koldo Izagirre

Gau batez, pare bat aldiz irten zen, etxeko **ate ostean** zerbait zirrin-zarran antzeman ondoren, eta itzal bat erdikusi zuen. Koldo Biguri

Sara adi zegoen etxolako **ate ostean** -Abrahan eta Sara oso zaharrak ziren, eta Sarak ez zuen jadanik hilekorik izaten. Jose Antonio Mujika

Jaunak esan zion: -Zinez, urtebete barru itzuliko natzaizu, eta ordurako zure emazte Sarak semea izango du. Sara adi-adi zegoen oihal-etxolako **ate ostean**. Elizen arteko biblia

Hala ere, bat hautatu behar eta judasa zait aloso, frantsesak oso berea duena, ate zirritua esateko, ateko xilo eta **ate ostekoaren** begi. Iñigo Aranbarri

Gaur zu eta zure laguna Harryri ikustaldia egitera etorri zaretenean, bazen baten bat **ate ostean**, zuen elkarrizketa entzuten. Oskar Arana

Menturaz abokatuarekikoa entzuten egona zen **ate ostean**. Koldo Izagirre

Ni ere banauk; banoak ni ere -eta trena **ate ostean** zain balego bezala zutitu zen. Josu Zabaleta

Zintzoen komunitatea, zokoetan, telefonoetan, itxitako **ate-osteetan** bilkurak eginez. Oskar Arana

22 *ate zoko*

Ate zokoan kutxa handi bat; eta gainean hegaztegia, ernaiak ageri, berinazko tranpa eta idekidura teilen artean. Xipri Arbelbide

23 *ate zulo*

Motorra itzali, eta atea zabaldu zuen Marrok; **ate-zulo** guztia bete zuen, hartz baten itzal ikaragarriak bezala. Juan Kruz Igerabide

Urrundik, merkatu nagusiak, zeharka ikusita, txunditu egiten zuen: arku eskerga bat, **ate zulo** garai handi bat, zabaltzen zen lehenbizi. Karlos Zabala

Gero ostera mugitzen hasi ziren nire urratsak, eta **ate zuloetan** barrena zer-suma segitu nire begiek. Juan Garzia

Harry atzera etzan zen ohean, eritegiko **ate-zulo** ilunera begira, hanka-hotsak gero eta hurbilago entzuten zituen bitartean. Iñaki Mendiguren

24 *atea bulkatu*

Gau hartan, uretan errauts urtu erremedioak hurrupaturik, hozkailuaren **atea bulkatu** gabe, oheratu nintzen. Itxaro Borda

Estazioko langilea **atea bulkatu** bezain laster baztertu da, eta bi zaplada eman dizkio bizkarrean Lainezi honek kanpora egin duenean. Pello Lizarralde

25 *atea ireki*

Euskara Batua izateak, idatzizko zereginetan inolako eragozpenik gabe erabili ahal izatea ekarri zuen, eta euskara kultura hizkuntza izateko **atea ireki** zuen horrek. Koldo Zuazo

Oroitzapeneko **atea ireki** nion: "Nekaneren airea nuen, Nekaneren antzera izugarri alaia nintzen... ". Iñaki Arranz

Zenbait bizilagunek mozkorrei edo eskaleei **atea irekitzea** eragozteko jarri zutela sistema hura azaldu zidan jarraian. Bernardo Atxaga

-Azpimunduko **atea irekitzen** bada, deabruek nahi beste bider igaro dezakete. Joanes Urkixo

26 *atea jo*

Halatan nengoela, hau da, erabat ozpindua eta aldarterik gabea, **atea jo** zuten. Josetxo Azkona

Livo eta Eligio, Susanna, Giovanni Blasut eta Jacurekin batera **atea jotzen** ari ziren unean bertan iritsi ziren beretarren artera. Josu Zabaleta

Garaiz nabil oraindik Yolanderen etxeko **atea jotzeko**, baina nahiago dut herrikideen tabernara jatera joan. Eskarne Mujika

Gure bizikletak haren etxe aurrearen kontra utzi eta **atea jo** genian. Josu Zabaleta

Haietako batean **atea jo** zaindarietarik batek, eta sartzeko zioen ahots bat entzun zen. Xabier Montoia

Atea jo dute ordu erdi lehenago, Azpeitiko Erdikalean, Patxi Alberdiren etxean. Iñigo Aranbarri

Hamaikak aldera **atea jo** zuten, eta On Camillo ohetik atera zen. Koldo Biguri

Izialdurak zidan naski **atea jo**. Zoriondu nahi ninduen etsaminetan lehen ateraturik eta baginen andana ederra. Piarres Aintziart

Como tires algo por el retrete te mato a hostias, esan zuen batek **atea jotzen** zuelarik, baina ez zeukan krisketa jarrita, Anjel segituan atera zen komunetik, paretaren kontra jarri zuten berehala, eta nirekin egindako operazio berbera errepikatu zuten. Mikel Hernandez Abaitua

Eta **atea jo** eta aitona agertzen bazitzaidan, besterik gabe? Jon Muñoz

Gainerako lagunok Unibertsitateko **atea jo** genuen urte berean, denda-mutil hasi zen Zabalguneko merkatu-plazako postu batean. Aingeru Epaltza

Hurrengo unean nire **atea jo** zuen, emeki, eta gelan sartu zen, lanpara bat eskuan zekarrela. Koro Navarro

Bizar beltz zabal batek estaltzen zidan musua, eta, etxeko **atea jo** bezain laster, Moisesek fedea galdu zueneko etsipena erakutsi zuten nire zapaten urrats lohituek. Aritz Gorrotxategi

Orduan, **atea jo** zuten, horrexek salbatu zuen pentsabide ilunetan gehiago barrentzetik. Iñaki Iñurrieta

Atea jotzen du. Oskar Arana

Monasterioko **atea jo** zuen Alkimistak. Xabier Aranburu

Behin, semeak etxeko **atea jo** zuen. Eskarne Mujika

27 *atean jo*

Hatz-koskorrak prestatu ditu **atean jotzeko**. Hasier Etxeberria

Atean jo gabe, klaro. Unai Elorriaga

Hamabi eta erdietan puntuan, igande goiz eguzkitsu hartan, **atean jo** zuten Julio Rekexoren apartamentuan. Joxemari Iturralde

-Ez, ez da usua - eta begiak ilundu zitzaizkion Velascori, oroitzapen mingarriren batek **atean jo** balio bezala. Anjel Lertxundi

Emigratzen du, kirio-zelula baten **atean jotzen** du, sartu, eta zelularen parte zen beste karbono bat ordezkatzen du. Juan Garzia

Atean jo zuen, eta ireki nion, baina ez erabat zabalik. Edorta Jimenez

Komentuko aterpean jarriak dira jadanik eta ulertu dut behar ez zen **atean joa** nuela oixtian eta, urruntxeago zela erromesen zain ospitaleroa. Piarres Aintziart

Heriotzaren **atean jo** dute, gu denek egun batez joko dugun bezala. Herria

Eta haren **atean jo** dut neure eri-punttez, polliki-polliki; inortxok ere ez entzuteko moduan. Txillardegi

Bere zuhaitzeko **atean jotako** kolpe leun eta zuhur batzuk izan ziren. Julen Gabiria

Emakumeak sugi zurezko **atean jo** zuen arinki hiruzpalau aldiz. Ibon Uribarri

Zalgurdia iritsi da atarira, eta **atean jo** dute. Imanol Zurutuza

Atean jo dut. Iban Zaldua

"E! E! Geldi, mesedez", **atean jo** zuen. Iñaki Zabaleta

Konpartimentuko **atean jo** zuten eta bederatzigarren eta hiru laurdeneko nasan Harryk ikusia zuen aurpegi biribileko mutikoa sartu zen. Iñaki Mendiguren

Atean jo du, eta Miren atera zaio. Joan Mari Irigoien

Gauaz sartu zelarik, gaztek **atean jo**. Xipri Arbelbide

28 *atean joka*

Ricardo Carlvaho atzelari portugaldarra Eurokopa bikaina egiten ari da, eta Europako talde onenak **atean joka** ari zaizkio Berria - Kirola

Gelan sartu eta handik entzuten nion Yvani oihuka eta **atean joka**, eta negar egiten, otsoek baizik ez dakiten moduan, eta Lurra zintzur modulazio luzeen bitartez madarikatzen. Joxan Elosegi

Eskualdeko bide, xendra eta zoko-moko guziak ezagutzen zituen, eta egunsentia aitzin, Alzateko Ithurbidetiarren etxeko **atean joka** ari zen. Elena Touyarou

Atean joka ari da norbait. Monika Etxebarria

29 *atean/atera deitu*

Inork atean **atean deitu** zain zegoela esango niken... Zirt eta zart, lasterka abiatu zen etxerantz, **atean deitzen** akitu gabe sartu, eta sukaldetik ontzitara bat ur eskuetan zetorren Martzelina zaharra abantzu uzkaili zuen. Nola ez bada errudun sentitu haien intimitatea bortxatu behar banuen, haien gelan **atean deitu** gabe sartu behar banuen. Anjel Lertxundi

Lasterka batean igotzen naiz; **atera deitzen** dut. Eskarne Mujika

Goiz batez, **atera deitu** zuten. Lander Garro

Lasterka batean igotzen naiz; **atera deitzen** dut. Eskarne Mujika

30 *ateko marra*

Hamaiseigarren mintuan, berriz, berak ateratako korner itxi batean, Eliak hankasartze handia egin eta baloia **ateko marra** gainditu zuen ia-ia, Nihatek jo ondoren. Berria - Kirola

Eta, ate atzean zeuden ikusleei sinetsi behar badiegu, bazirudik, **ateko marra** zeharkatuta gero, halako ukitutxo berezia egin ziola, eta baloia tango bat-edo dantzatzen hasi zela... eta bote txiki batzuk ere egin zituela, pozaren pozez, itxura batean. Joan Mari Irigoien

31 *ateko sake* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Futbolean **ateko sakea** defentsan ari den taldeari emandako sakea da, baloia azkenekoz talde erasotzaileko jokalari batek ukitu ondoren ateko marratik atera denean. ETC-entziklopedia

Baina, marrazainak **ateko sakea** adierazi jokaldi batetan kornerra eskatzeagatik Brit zigortzeko esan zion marrazainak epaileari. ETC-prentsa

Jokalari bat gutxiagorekin, sekulako arnasa eman zion **ateko sake** guztietan, urrezko segundoak galduta. ETC-prentsa

Zubikaraik ez zuen behin ere **ateko sakea** luze atera. ETC-prentsa

Hiru minutu bakarrik gehitu zituen, Tyton atezainak **ateko sake** guztietan sekulako denbora pila galdu bazuen ere. ETC-prentsa

32 *atez ate*

Erregeen jauregia **atez ate** zegoen nire tenpluaren kontra, haien eta nire artean horma bat besterik ez zegoelarik. Elizen arteko biblia

Gelako sarrailek hots handia atera zuten eta oihartzuna **atez ate** pasabidean aurrera joan zen New Harlem hotel gaizki argituan. Iñaki Zabaleta

Ez naiz **atez ate** kalaka ari den iragarlea. Itxaro Borda

Zoazte **atez ate** beharrezkoa bada. Harkaitz Cano

Bestetik, letrak, zerbaitek eraginda, bultzatu nahi den mezua, izurria bezalaxe, **atez ate** doana, oso ondo ez badakigu ere zergatik. Iñigo Aranbarri

-Ez zaidan burutik joaten nirekin **atez ate** bizi den emakumearen alabatxoa. Anton Garikano

Berandutxo arte, gerra zibilaren hotsak gainean genituenean ere, etorri ohi ziren ijitoak **atez ate**, farfailak, harizko izarak, nylonezko oihalak eta horietakoak eskaintzera, beti lelo berdinaz. Pako Aristi

Autobusa ezin da heldu bizileku gune gisa antolatu den eremuetara eta zerbitzua **atez ate** eskaini, baina jende kopurua emendatu ahala, herri garraioaren erabiltzaileak ugaltzen dira. Berria - Euskal Herria

Tambo hartan Don Julianek behi esnadun eta ahatxe zonbeit hazten zituen eta deitzi esnea **atez ate** saltzen. Herria

Baina haren plazerrik handiena anaiekin irtetea zen, haiek ogi eskale zihoazenean **atez ate**, eta oihal batez estaliriko haien otarrea eramatea. Juan Garzia

Galdeketa-enpresa bateko langile gisa hasi ziren lanean **atez ate**. Joxean Agirre

Azkenean telefonoz saiatzea pentsatu zuen, bai baitzekien inork gutxik irekitzen diela atea ezezagunei, eskale, saltzaile edo **atez ate** dabiltzan zeruko ordezkariak direlakoan. Migel Angel Mintegi

Ez zuela, bada, **atez ate** zertan ibili beharko, orain zebilen bezala, sos batzuk eskuratzeko ahaleginean. Josetxo Azkona

-Zertarako balio du honek? - galdetu zion **atez ate** zebilen eskale bati. Koro Navarro

Hala bada, Antonio anaiak manta batean bildu, eta **atez ate** eraman zuen, bizilagunei azken agurra ematera. Patxi Zubizarreta

33 *atez ateko bilketa*

Lurren proposamena, bigarren zabaltze eta mugatze prozesua, erriberaren babes zehatza, zaborren kudeaketarako **atez ateko bilketa** eta zati organikoa konpostatzeko instalazioa egitea, sarrera-irteerako bideak berritzea, erreboteko frontoia berritzea eta kultur etxea. Berria - Euskal Herria

34 *atez ateko zabor bilketa* *(corpusean ez dago; ETCn **184** agerraldi)*

Askoz gehiago eskatzen zuen zabor-bilketa sistema berria ezarri nahi izan zutenean: zenbaterainoko kontrakotasuna eragiten zuen **atez ateko zabor-bilketa** sistema berriak! ETC-literatura, saiakera

Besterik gabe, egungo gertaerez hitz egin ohi dio, krisi ekonomikoari buruz, ustelkeria politikoari buruz, ziklogenesi lehergarriaz, **atez ateko zabor bilketaz**, inoiz ere dibertigarriak ez diren gaiez, nolanahi ere. ETC-literatura, saiakera

Aduna, Asteasu, Astigarraga, Lasarte, Oiartzun eta Usurbil, **atez ateko zabor bilketaren** alde. ETC-prentsa

Atez ateko zabor bilketa azalduko die Usurbilgo Udalak herritarrei. ETC-prentsa

Norbanako eta herri txikien iniziatibei erreparatu beharko diete handiek; **atez ateko zabor bilketari**, adibidez. ETC-prentsa

Atez ateko zabor bilketa hasi berria dute Usurbilen, eta hartarako ontziekin egin zuten lasterka herritarrek, Xabier Mikel Errekondo alkatea buru. ETC-prentsa

Errauste planten aldean beste aukera batzuk badaudela sinetsita, **atez ateko zabor bilketa** egitea eskatuko dute Donostian etziko eta datorren irailaren 13rako deitu dituzten kontzentrazioetan. ETC-prentsa

Errausketa baztertu, eta **atez ateko zabor bilketaren** alde egin du Ezker Batuko ordezkariak. ETC-prentsa

Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) alkate Ana Urtxuegiak atzo berretsi zuen ez dutela udalerrian **atez ateko zabor bilketa** ezartzeko asmorik. ETC-prentsa

2013ko apirilean, Legazpin, Atez Atekoaren Kontrako Herri Plataformak herri galdeketa egin zuen udalak ezartzeko asmoa zuen **atez ateko zabor bilketaren** aurka. ETC-prentsa

35 *auzoko ateak ixtera joan* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Bera botatzeko erabakian zaleekin izandako harreman zailak eraginik izan ote duen galdetuta, Camachok polemikak saihestu nahi izan zituen: **Â"Auzoko ateak ixtera joaterik** ez dut nahi; ez diot inori kargu hartu nahi; ez da nire estiloaÂ". ETC-prentsa

Ez zaitez **auzoko ateak ixtera joan**, memelo hori!". ETC-literatura, saiakera

36 *ilargi ate* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Ilargi atea (txineraz "Martxoko atea" edo "Apirileko atea" bezala ezaguna) horma batean egindako irekiera zirkularra da. Ohikoa da txinatar lorategietan. Azpitik igarotzen denari zorte ona ematen omen dio. ETC-entziklopedia

37 *leiho-ate*

Erosi zituen erosi, berogailu elektriko bat eta haizagailu elektriko bat, errezela berriak, **leiho-ateak**, eta hainbat argi-instalazio, den-denak bere logelarako. Mirentxu Larrañaga

Hango leihoek patiora ematen zuten, **leiho-ateen** atzetik agertzen ziren gaztainondoetara, zeinak harro altxatzen baitziren jauregiaren hegoaldeko hegaleko harrizko balkoien aurrean zirkuluerdia eginez, udaberrian beren lore larrosakarak eta hosto berde ilunak goraturik. Xabier Olarra

Orain ez dago zurezko aterik inon, hezetasunaren aitzakia eginda aluminiozkoak eta PVCko **leiho-ateak** ezarri dituzte etxe guztietan, min ematen dute begian hare-harriaren gaineko modernia merkeok. Koldo Izagirre

Galdegin nion ea non geratzen zen hiri hura, eta gizonak, geunden gela txikiko **leiho-atera** hurbilduz, mendebaldea erakutsi zidan, eguzkia jartzen den tokia. Felipe Juaristi

Leiho-ate bat erdi ireki eta esku mehar batek gazta bat eta ogi borobil handi bat utzi zituen erortzera, berriz ere danba hetsi aitzin. Aingeru Epaltza

Jatetxe jendetsu batean eta elizara ematen zuen **leiho-atetik** guztiz urruti bazkaldu genuen. Anjel Lertxundi

38 *norberaren atean sartutako gol* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Norberaren atean sartutako gola, nork bere atean sartutako gola edo ate propioan sartutako gola futbolean jokalari batek baloia bere atean sartuz gola egiten duenean deitzen zaio. Mota honetako gol batek aurkako taldeari ematen dio tantoa. ETC-entziklopedia

39 *norbere ateko gol* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Norbere ateko gola. ETC-entziklopedia

40 *ontziratze ate*

Hegaldia atzeratuta zetorrela jakinarazi zuten, **ontziratze atera** iritsi nintzenean. Ramon Saizarbitoria

41 *suaren aurkako ate* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Beharrezko segurtasun neurriak sute edo uholde kasuetarako: drainatzeak, su-itzalgailuak, ebakuazio bideak, **suaren aurkako ateak**. ETC-entziklopedia

42 *zabor bilketa atez ateko* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Gipuzkoako 34 herritan **zabor bilketa atez ateko** sistemaren bidez egingo duela jakinarazi zuen Bilduk herenegun, eta aipaturiko alderdiek gogor kritikatu zuten, atzo eginiko agerraldietan. ETC-prentsa

2016an, atez atekoaren emaitzak ikusita, Pello Garbizu (Euzko Alderdi Jeltzalea EAJ) alkateak **zabor bilketa atez atekoa** mantentzeko akordioa egin zuen EHBildurekin. ETC-entziklopedia

43 *zerbitzu-ate*

Jaka eta kapela esekitokitik hartu eta **zerbitzu-atetik** alde egin zuen kalera, zabor-ontzi batzuk atzean utzita. "Zein ergela, bi orduko soldata alferrik galtzea ere!". Lopez de Arana

Orduan, Pasottiren neskame zaharra Badiako **zerbitzu-ateskatik** irten eta kontrol postuko gizonei adierazi zien herriko botikara zihoala desinfektatzeko gauzak erostera. Koldo Biguri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

ate aitzinean (20); **ate aldera** (82); **ate aldera joan** (17); **ate asko** (18); **ate atzean** (26); **ate aurrean** (165); **ate aurrean gelditu** (16); **ate aurreko** (12); **ate aurrera** (15); **ate azpiko** (12); **ate azpitik** (21); **ate barrura** (13); **ate bat** (199); **ate bat ireki** (22); **ate bat zabaldu** (23); **ate bat zabaltzen** (13); **ate batean** (12); **ate baten** (55); **ate batetik** (46); **ate batzuk** (13); **ate erdi** (27); **ate gainean** (23); **ate gaineko** (19); **ate guztiak** (76); **ate guztiak zabalik** (12); **ate handi** (25); **ate handia** (15); **ate hau** (11); **ate hori** (26); **ate horren** (14); **ate horretatik** (12); **ate hotsa** (11); **ate hura** (21); **ate idekitze** (13); **ate idekitzeak** (18); **ate ingurura** (13); **ate ireki** (11); **ate itxi** (14); **ate joka** (136); **ate joka hasi** (11); **ate leihoak** (17); **ate nagusia** (42); **ate nagusian** (12); **ate nagusiaren** (23); **ate nagusitik** (15); **ate ondoan** (170); **ate ondoan zegoen** (11); **ate ondoko** (40); **ate ondora** (23); **ate ondotik** (17); **ate txiki** (13); **atez ate** (48); **atzeko ate** (13); **beste ate bat** (18); **bi ate** (28); **burdinazko ate** (28); **etxeko ate** (28); **gelako ate** (19); **hiriko ate** (13); **hiru ate** (14); **sarrerako ate** (14); **sukaldeko ate** (11)

armairuko atea (11); **atariko atea** (13); **atea bota** (13); **atea bultzatu** (21); **atea danbateko batez** (14); **atea giltzaz** (32); **atea giltzaz itxi** (17); **atea hutsean** (17); **atea ireki** (445); **atea ireki eta** (105); **atea ireki zen** (28); **atea ireki zuenean** (13); **atea irekiko** (19); **atea irekita** (37); **atea irekitzea** (13); **atea irekitzean** (21); **atea irekitzeko** (17); **atea irekitzen** (64); **atea irekitzera** (26); **atea irekitzera joan** (12); **atea itxi** (303); **atea itxita** (41); **atea itxiz** (11); **atea ixteko** (13); **atea ixten** (62); **atea jo** (238); **atea jotzen** (35); **atea zabal** (20); **atea zabal zabalik** (11); **atea zabaldu** (357); **atea zabaldu zen** (29); **atea zabalduko** (15); **atea zabalik** (121); **atea zabalik utzi** (14); **atea zabalik zegoen** (25); **atea zabaltzeko** (21); **atea zabaltzen** (75); **atea zabaltzera** (19); **atea zaintzen** (19); **atea zeharkatu** (28); **atzeko atea** (35); **autoko atea** (11); **bulegoko atea** (30); **burdinazko atea** (20); **etxeko atea** (92); **etxeko atea ireki** (11); **etxeko atea zabaldu** (11); **ganbarako atea** (11); **gelako atea** (101); **gelako atea ireki** (23); **gelako atea zabaldu** (11); **ireki atea** (11); **ireki zuen atea** (16); **itxi zuen atea** (18); **kaleko atea** (18); **kanpoko atea** (27); **komuneko atea** (26); **logelako atea** (32); **ostatuko atea** (12); **sarrerako atea** (29); **sartzeko atea** (11); **sukaldeko atea** (14); **tabernako atea** (12); **ziegako atea** (11); **zurezko atea** (12)

ateak eta leihoak (22); **ateak ireki** (139); **ateak ireki zizkion** (11); **ateak irekiko** (26); **ateak irekita** (30); **ateak irekitzeko** (24); **ateak irekitzen** (33); **ateak itxi** (137); **ateak itxiko** (18); **ateak itxita** (103); **ateak itxita egin** (13); **ateak ixtea** (15); **ateak ixteko** (23); **ateak ixten** (35); **ateak zabal** (22); **ateak zabal zabalik** (17); **ateak zabaldu** (86); **ateak zabalduko** (15); **ateak zabalik** (116); **ateak zabaltzea** (11); **ateak zabaltzeko** (18); **ateak zabaltzen** (51); **bere ateak** (25); **beren ateak** (12); **etxeko ateak** (20); **hiriko ateak** (14)

atean agertu (17); **atean azaldu** (12); **atean bertan** (15); **atean gelditu** (15); **atean geratu** (17); **atean jo** (51); **atean sartu** (20); **atean zain** (14); **atean zegoen** (21); **bere atean** (57); **bere atean sartu** (15); **etxeko atean** (33); **gelako atean** (18); **logelako atean** (11); **sukaldeko atean** (14)

atearen atzean (16); **atearen aurrean** (52); **atearen azpitik** (12); **atearen bestaldean** (12); **atearen beste aldean** (14); **atearen gainean** (12); **atearen kontra** (46); **atearen ondoan** (42); **atearen parean** (12); **etxeko atearen** (11); **gelako atearen** (14)

ateari bultza (17); **ateari bultza egin** (11)

ateraino joan (29)

aterantz abiatu (30)

---

atebide *(corpusean ez dago; ETCn 66 agerraldi)* **1** *iz* informatikan, ordenagailuak elkarrekin lotzea eta sareak sortzea ahalbidetzen duen gailua.

Atebidea edo pasabidea sare protokolo eta konputagailu arkitektura maila guztietan ordenagailuak elkar lotzea eta komunikatzeko sareak sortzea ahalbideratzen duen gailu bat da. ETC-entziklopedia

Bideratzaile horri sareko irteera, pasabide, **atebide**, edo besterik ezeko bide deituko diogu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oracle-ko Open Gateways (**atebide** irekiak) direlakoek Oracle zerbitzari batetik Oracle-koa ez den datu-base bat atzitzeko aukera ematen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***atebide lehenetsi*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Atebide lehenetsia atalaren eskuinean agertzen dena izango da routerraren helbidea. ETC-prentsa

Atebide lehenetsia TCP/IP sare batean kokatutako konputagailu batek IP birbidaltze taulan beste aukerarik ez duenean aukeratzen duen atebidea edo konputagailua da. ETC-entziklopedia

---

ateburu *(orobat **ataburu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ateburu** agertzen da) iz* atearen goiko zatia, alboek eusten dioten atal batek osatua.

Ateburua eta ate-ondoak trakets tailatutako granito urdinezkoak ziren. Fernando Rey

Etxera orduko, **ateburu** gehienetan iltzez josita izaten zen eguzkilorea zuen barometro fidelen eta zuzenena: lorearen printza horixka haiek kizkurtzen eta kakotzen, lorea ixten bezala abiatu bazen, ziurtzat joko zuen laster emango ziola euritik. Pello Zabala

Sala guztia urrez jantzi zuen: habeak, **ateburuak**, hormak eta ateak. Elizen arteko biblia

Santutegiaren sarrerarako olibo-zurezko ateak egin zituen. **Ateburuak** eta ate-zangoek bosna koska zituzten. Elizen arteko biblia

Leiho eta **ateburuetan** karranka egingo du beleak. Elizen arteko biblia

So egin zion halaber, aurreko aldian bezala, **ateburutik** eskegita zegoen motots beltzari. Juan Garzia

Lehenbizi airea **ateburutik** honantz ikusten dugu, ondoren atea bera ezker-eskuin, eta gero kanpoko argia eta beste aire kolpe bat eta ateaz handik benetan ikusten ditugun gauzak begietaratzen zaizkigu. Xabier Amuriza

Atari aurrean, harrizko **ateburuan** zizelkatutako irudiei begira egon ziren pixka batean. Imanol Zurutuza

Ateburuetako segurtasun-argien helmena ez zen aretoko bazter guztietarainokoa. Anjel Lertxundi

---

ategain *iz* atearen goiko aldea.

Gero, abere-odola hartu eta aberea jango duzuen etxeko **ategainak** eta alboak odoleztatuko dituzue. Elizen arteko biblia

Behereko karrikan bost etxetan **ategaineko** harriak badira zinez ohargarriak. Michel Oronoz

Sartu aitzin nolaz ez agurtu **ategaineko** Belokeko Ama, bere irri xuriarekin. Marzel Etxehandi

Behereko karrikan bost etxetan **ategaineko** harriak badira zinez ohargarriak. Michel Oronoz

Auritzen anitz etxek **ategaineko** harrietan 1794. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

ateismo *iz* jainkorik denik ukatzen duen dotrina.

Robespierrek **ateismoa** eta antiklerikalismoa suntsitu nahi ditu, erlijioa eta kultua indarberritu, zeren eta, haren hitzetan, **"ateismoa** aristokratikoa da". Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jantse-nismo gisa zokoratua, deismo, arrazionalismo, agnostizismo eta **ateismo** gisa agertu zen berriro. Iñaki Mendiguren

Askok kritikatu dute **ateismoa** ez bidegabekeriari, baizik eta arduragabekeriari egotzi izana; are gehiago, batzuek interpretatu dute ateoekin etsai bigunegi gisa azaldu naizela. Esteban Antxustegi

Bere **ateismo** tinkoaren eta antiklerikalismo porrokatuaren jakinean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere bizitza eskandalu hutsa izan zen bere orgia, obra, epaiketarik gabeko espetxealdi eta sexu librearen eta **ateismoaren** apologiagatik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ateismoaren izugarria gutxitzeko, gehiegi nabarmentzen da idolatria. Iñaki Iñurrieta

Robespierre sumindu egiten da Saderen **ateismoaren** aurrean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beste modu batez esateko, **ateismoaren** sehaska Europa da, baina europar kultura hain elizkoiak izan delako, hain zuzen. Edorta Jimenez

Kritika da eskuarki kaltegarriak izan daitezkeen materialismoari, fatalismoari, **ateismoari**, librepentsalarien sinesgogortasunari, gogoberotasunari eta sineskeriari erroak ebaki diezazkiokeen bakarra, baita azkenik idealismoari eta eszeptizismoari ere. Ibon Uribarri

Ez da ahaztu behar ETAren formazio ideologikoan Europako pentsamendu joera berriak nagusitu zirela, **ateismotik** existentzialismora, marxismotik maoismora, antikolonialismotik nihilismora. Joseba Zulaika

Azkenean galbide izan zuèn **ateismo** heroikoan aurkitzen da haren jatorri jainkozkoaren froga. Juan Garzia

Gaztetako **ateismo** porrokatua utzi, eta agnostizismoaren dotrina fedegabea hartu zuen arte, ez zen jainkozurtz sentitu. Joxerra Garzia

"Ateismo ofizialaren mendean hazitako idazlea, fededun; fedean hazitakoa, ateo". Edorta Jimenez

---

ateista *iz*

Mendebaldeko gizakiaren fede nagusia sineskizun hau izan zen beti: unibertsoa legearen mende zegoela eta ez kaosaren esku; eta fede honen aro moderno beranteko bertsio deista edo **ateista** hau zen: unibertsoaren legea "naturaren legeen" sistema bat zela. Iñaki Mendiguren

---

atejoka **1** *adlag* atea jotzen.

Agirretxe eta Diaz Zerio gazteak ere, errematatzaile trebeak biak, **atejoka** ari dira. Berria - Kirola

2 irud/hed

A zer zaputza izango zuen lihoak beste urte batzuetan, udazkena **atejoka** derrepente etorritakoan! Pello Zabala

Azaroa **atejoka** laster batean. Pello Zabala

---

ateka **1** *iz* kinka larria, estualdia. ik **ataka**.

Eta, hara!, **ateka** hartan Simon agertu zen, ontziburu berriaren bila. Edorta Jimenez

Eta menturaz, **ateka** horretarik ateratzekotz, gogoetak egiteko ordua etorri zaigu denoi. Piarres Xarriton

Mira eginda ere banengoen, Basurtokoak **ateka** gaitz hartatik irteteko gezurra zein airos jaurti zuen ikusita. Edorta Jimenez

Porturen batera hainbat bizkorren egitea beste aterabiderik ez geneukan, ontziak zituen matxurengatik ez ezik sukar ustelak jotakoak lehorrean utzi beharko genituelako ere bai, bestela Herio gurekin eroango genuen eta; hara gure **ateka** gaiztoa. Edorta Jimenez

Garaiak gogorrak diren arren, gure herria **ateka** gaizto honetarik garaile aterako da. Elena Touyarou

Ez bata, ez bestea ez ziren nehoiz gertatu hain **ateka** gaiztoan eta ez zekiten nondik has. Elena Touyarou

Artilleroen buru Perori non egongo nintzen esan behar izan nion **ateka** estuan, ostatu huraxe aipatu nion, kutxa saldu zidan gizonak esan zidana gogoan. Edorta Jimenez

Ateka nondik nora gainditu igarri ezinik, Albaniari buruzko datuak eskatzen ditut. Edorta Jimenez

2 haitzuloetako sarrera estua, harresietan egiten den irekidura eta, oro har, edozein igarobide mehar.

Zaharrak seinalatu **ateka** gordea bilatu zuten eta eskailera hertsi batetik jautsi ziren kontrabandoko salgaien gordagia zen zuloraino. Elena Touyarou

Gautu zuenean, **ateka** gordea irekitzen entzun zuten eta beren adiskide Gartziaren boza aditu zuten. Elena Touyarou

Ez zuen zailtasunik ukan aurkitzeko, **ateka** gaixto bat edo karrika itxi batean aurkitu baitzuen. Ramuntxo Etxeberri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ateka gaixto (8); **ateka gaizto** (3); **ateka horretarik** (3)

---

atelada *iz* portala.

Herriko lehen etxeetatik hona eliza berritua, bere **atelada** erromaniko sinple bezain ederrarekin. Piarres Aintziart

San Roman elizako **atelada** zinez ikustekoa da. Piarres Aintziart

Doi-doia behako hotz bat San Migel elizako **ateladari**. Piarres Aintziart

Errepide hertsi patartsu bat eta jarraian, eskuin, herriko hilerria, **ateladaren** gaineko harriak keinu egiten diola bidaiariari: [...]. Piarres Aintziart

---

ateleiho *(ETCn **3** agerraldi; orobat **ate-leiho** ETCn **137** agerraldi) iz* ate-leihoa.

Horretan ez didate irabaziko, erreflexio infantila, **ateleiho** bat bezala ireki zitzaion. Harkaitz Cano

Egun hartan lasto-balen gainean eserita geunden, ukuiluko **ateleiho** itxien ilunpean elkarren ondoan. Koro Navarro

---

ateleka *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* errieta.

Eta horixe izan zen bere azken **ateleka**. ETC-literatura, saiakera

Filosofiaren historia bat osoa irakur daiteke (edo idatzi ere: Tennemanni **atelekan** baitihardu berak!), noiznahiko iritzien eta joan-etorri kulturalen kronika zehatz bat bezala, eta, informazio eta anekdota guztiak ikusi arren, filosofiari berari eta filosofia zer den, ezta antzik eman ere. ETC-literatura, saiakera

---

atelekatu, ateleka(tu), atelekatzen *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* du *ad* errieta egin.

- Zergatik **atelekatzen** nauzu orduan? ETC-literatura, saiakera

Grinen mintzo bero jatorrizkoaren lekuan, jendetasun eta urbanitate gortesauaren arazeria artifizial zurbila ipini du teatro frantsesak, Lessingek **atelekatzen** dionez. ETC-literatura, saiakera

---

ateleria *iz* ateliera.

Hazparne edo Donapaleuko irakurketa **ateleria** horietan hitz berri horien ezagutzea joko bat bilakatzen da. Herria

Kuriosa den publiko zabalarentzat pikoan emanak dira hamar edo dotzena bat **ateleria** (bat ahalmen hurrikoentzat), material gutxienarekin jostatzen ikasteko. Herria

Bertan dagoen Guanes Etxegaraien pintura eta eskultura **ateleria** zahar-berritzea. Herria

Hiriko **ateleriek** saritu dituzte ofizialeak, nola behar diren bastiza xaharrak berritu erakutsi ondoan. Herria

Josette DACOSTA **ateleria**-galerian erakusketa. Herria

Lehenbiziko ikerketa batek erakusten du beharko dela 60 lekuko irakur gela handi bat, pedagogia **ateleria** pare bat, eta aski leku oraino 12 kilometro luzetazuneko erreserbarentzat. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
irakurketa ateleria (3)

---

atelier *z* artisauak eta langileak elkarrekin lan egiten duten tokia.

Sigla horren azpian *Ouvroir de Littérature Potentielle* dugu, hau da, euskaraz eman diren itzulpenetan, "Balizko Literaturaren **Atelierra"**, "Literatura Egingarriaren Lantegia" edo "Literatura Potentzialaren Lantegia". Iñaki Arranz

Azkenean, erlojerotza utzi eta **atelier** bat zabaldu zuen Donostian, Guerrini italiarra sozio hartuta. Koldo Izagirre

Ziegan dauka antolatua **atelierra**, eta esanen nuke bezeroen atzetik heldua dela oxtabenara, txanda ezin emanik ibiltzen baita, batez ere txotxoekin. Koldo Izagirre

Atelierrera zetorrenean, Jean Marie sindikalista huxtuka errezibitzen zuten: ez zuen hitzik ahoskatzen ahal. Itxaro Borda

Eta hala egon zen margoa lau bat urte gehiago Barraud-en **atelierrean**, William Barry Owen-ek proposamena egin eta Gramophone etxeak erosi zion arte. Iñigo Aranbarri

Kanpora eraman ninduen, bandera faxistak zeuden nonahi, baforeetan, sapailoetan, **atelierretan**, kanpandorreetan. Koldo Izagirre

Lanak gorputzak higatzen zizkigun, buruonak xitxifrikatzen, baina **atelierretan** zein bulegoetan, gutxi edo aski jendetzen gintuen elkartasun zerbait bermatzen zen. Itxaro Borda

Jabedun gehienak beren denda, bulego eta **atelierretan** topatu nituen, baina moilan zebilena jende arrotza zen, terrestreak denak, esan haiei bereizteko arra eta emea legatzetan, gure galego guztiak errepublikaren armadan enrolatuak ziren, badakizu. Koldo Izagirre

Ohikoan hain zaratatsuak ziren **atelierretan** hormatzea hedatu zen. Itxaro Borda

"Robes et Manteaux" saltzeko aitzakiarekin familia oneko neska pobreok beren **"atelierretara"** erakartzen gaituzten Madama horietako bat, badakizu. Josu Zabaleta

Nemesio Arozenaren ilobaren **atelierretik** datoz, pistola neumatikoz josten dituzte orain arrain kaxak, eskatu handiren bat edukiko dute biharko. Koldo Izagirre

Egia erran, niri ere, bat-batean, iruditzen zitzaidan bidaia luze-luze bat eginik, biziki urrundik nentorrela, eta **atelier** hotz hura, astelehen goizetako aurpegi ilun haiek lehen aldikoz ikusten nituela. Daniel Landart

Atelier elektrikoaren atarira heldu ziren. Koldo Izagirre

Jules aldiz bere zurgintza **atelierrera** zihoan. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
atelier bat (3)
atelierrera joaten (4)

---

atenastar *izlag/iz/izond* Atenasko biztanlea.

Atenastar "faxisten" buruzagia ez balitz haren ikasleen artean izan, ziur aski Sokrates bere ohean hilko zen, mundu siniko paganoan haren "parekide" zen Konfuzio bezain

baketsu. Iñaki Mendiguren

K.a. bosgarren eta laugarren mendeetako **atenastar** errepublikan, Amisako hiriaren askatasuna berretsi zuen, are Pertsiako erregeen mende ere herri-estatua izan zen **atenastar** koloniarena. Iñaki Mendiguren

Etsipen handian erori ziren **atenastarrak**. Jon Muñoz

Orduan, auziari filosofiaren alderditik heltzea erabaki zuten **atenastarrek**; Platonengana joan, Akademiara. Jon Muñoz

Iraunkorki eraginkorra izan zen **atenastarren** erantzuna. Iñaki Mendiguren

Atenastarren arteko ikasienek bazekiten bere diagonalaren gainean karratua eraikiz bikoiztu beharra zegoela karratua. Jon Muñoz

Atenastarren batzorde bat Delfosera ontziratu, eta galdezka joan zitzaion orakuluari, ea esango zien izurria nola gelditu. beste greziar guztien artean, legeak seme-alabak beti beren gurasoak mantentzera behartzen dituen bitartean, **atenastarren** legeak beren seme-alabei arteren bat irakatsi dieten gurasoei bakarrik aplikatzen baitie lege hori. Jon Muñoz

Paulo honela mintzatu zen, Areopago erdian zutik: **"Atenastarrok**, edonola ere, guztiz erlijiozale zaretela ikusten dut. Elizen arteko biblia

Bera izan zen azken **atenastar** handia. Jon Muñoz

Altzibiades jeneral **atenastarrak** Periklesi idatzitakoak saldu zizkion Sutherlandeko dukeari. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

atenditu, atenditzen *(ETCn **584** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kasu egin**, **arreta eman** eta **artatu** agertzen dira)* du *ad* erantzun, aintzat hartu. ik **artatu**.

Gu oraindik etxetik atera gabeak izatea, CGT konpainiatik deitu zutenean, ordubete lehenagoko deia ere haiena izango zen seguru asko, baina nik artean ezin **atenditu**. Joxe Austin Arrieta

Alabaina, une honetatik beretik, etorkizunean zer egingo duen oraindik erabaki ez duenean, **atenditu** ez duen eskrupulo baten deserosotasuna sentitzen du, falta baino lehenagokoa den kontzientzia-alatze bat, arantza bat gogoan. Jon Alonso

Berak **atenditu** ninduen ingresatu ninduten gauean ere. Agurtzane Juanena

Eskerrak ez zituen andreak ere **atenditu** behar. Irene Aldasoro

Ume horiek egunean 15 bezero **atenditu** behar izaten dituzte jatekoaren truke. Berria - Gaiak

Ondoko botikan, jabeak ahal zuen moduan **atenditzen** zituen bezeroak. Berria - Euskal Herria

Barrenera egin, mostradorean mutil potolo bat monoz jantzitako tipo bat **atenditzen** ari zen. Pablo Sastre

Udal langileak **atenditzera** joan zen tabernaria, nahiz eta Mikeli begirik kendu ez. Unai Iturriaga

Chava Vergara Vengoecheak bazkari bat emango du bere apartamentuan Manuel Vergara Franco eta Maria Alexandra de Vergara **atenditzeko**, zeinak Bogotatik etorri diren. Pako Aristi

---

ateneo *iz* Espainian, jakintza edo literatura elkartea; frantsesezko Belgika eta Suitzan, lizeoa.

Nafarroako unibertsitate guztiek Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP), Nafarroako Unibertsitatea, UNEDeko zentroak, Nafarroako **Ateneoa**, Culturas Millenium Fundazioa eta Nafarroako Historia Ikasketen Elkartea elkarlanean antolatutako udako ikastaroetako bat bera ere ez da izango euskaraz. Berria - Euskal Herria

Nafarroan liburu berribat atera dute Gobernuak eta nafar **Ateneoak** euskara zabaldu eta zaintzeko xedez. Herria

Estatu indartsu bat, aberri berria egiteko, eskatuko du Unamuno-k Valentziako **Ateneoan** konferentzian 1902an. Joxe Azurmendi

Bartzelonako **Ateneoa** aretoa bete zen aurten Kataluniako hiriburuan egitekoa den Kulturen Forumaren aurkako lehen ekitaldian. Berria - Mundua

Lasarteko Hipodromoa eta Gipuzkoako **Ateneoa** inauguratzen dira. Askoren artean

Herenegun aritu zen gai horretaz, Gasteizko Hika **Ateneoan**, Derrigorrezko zerbitzu familiarrari intsumisioa leloko saioan. Berria - Euskal Herria

Ahots goraz eta espantuka **Ateneoko** saloiko mahai handiaren gainean zutik deklamatzen zituen, eta horregatik beharbada jarri zioten Sagarra goitizena. Felipe Juaristi

Ateneotik bertatik deitu nion lehendabiziko aldiz. Ramon Saizarbitoria

Kontuan hartu behar da, beluena 1875-76 kurtsotik aurrera, Madrilgo **Ateneotik** positibismoa burrundaka sartu dela, "metafisika" guztien arbuio osoaz, krausismoan bertan ere influentzia handiz ("krausopositibi-moa"). Joxe Azurmendi

---

atenporal *(ETCn **172** agerraldi, horietatik **91** azken sei urteetan) izond* denborari ez dagokiona.

Soiltasun horrek arreta guztia pertsonaiengan, musikan eta operaren istorian zentratzen ditu, eta izaera **atenporal** bat ematen dio muntaiari, baina momentu batzuetan pisutsua suertatzen da. Berria - Kultura

Ez dago denborarik hormigoiarentzako; hori da arazoa, hilik jaio diren gauzak **atenporalak** direla. Eider Rodriguez

Modu **atenporalean** pentsatzen zaitut, nire ondoan atzo, bihar eta gaur, begiak handi-handi eginda, gorputz biluzien dialektikan, begiradarekin maitasuna eginez. Eider Rodriguez

Bereterretxeri buruzko ipuinean, esaterako, Bereterretxek bizi duen zalantza hori, dilema hori, erabat modernoa dela uste dut, edo, hobeto esanda, erabat **atenporala**, betikoa. Berria - Kultura

Atenporala, arnasa hartzea bezala. Berria - Kultura

---

atentadu ik **atentatu**[2].

---

atentatu[1], atenta(tu), atentatzen du *ad* atentatu bat egin.

Gure lagun hurkoaren bizitzaren aurka **atentatuko** bagenu, esate baterako, onartuko didazue ekintza hori krimena izango litzatekeela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

atentatu[2] 1 *(orobat **atentadu** g.er.) iz* pertsona baten biziaren edo osotasunaren kontrako erasoa.

Gizon hura ez zen inola **atentatu** bat egiteko susmoa piztu zezakeena. Matías Múgica

Harik eta partisanoen **atentatu** batek kuartel bihurtutako hotela guztiz birrindu zuen arte. Anjel Lertxundi

Atentatu baten albistea ematen ari ziren telebistan, eta hildakoa lagun baten semea zela konturatu zen Karmen. Anjel Lertxundi

Amak kontatu zidak, **atentatu** baten beldur direla. Bernardo Atxaga

Beharbada sentimenduak **atentatu** batzuk absolutuki gaitzesten ditu, beste batzuk ez hain absolutuki. Joxe Azurmendi

Andreievek labur-labur kontatzen du nola atxilotu eta epaitzen dituzten ministro bat hiltzeko **atentatua** antolatzen ari diren bost gizon-emakume. Jose Morales

Atentatuak, konplizeak eta inpunitatea. Juan Martin Elexpuru

Aski nuen pentsatzea zein gutxi arduratu ninduten neu ere ordu arte telebistaz ikusitako **atentatuek**, zer nolako axolagabekeriaz aldatzen nuen telebista-kanala halako bat ikusi orduko: **atentatuak** ez ziren nire munduan gertatzen, ez ninduten hunkitzen, ez ziren aitonaren heriotza bezalakoak. Anjel Lertxundi

Eguerdiko **atentatuak** gaurko programa aldatzera behartu gaitu, eta hortik atzerapena. Anjel Lertxundi

Uztailaren 7an, guztira 56 hildako eta 700 zauritu utzi zituzten Londresko lau **atentatuek**. Iñigo Aranbarri

Hitler-en kontrako **atentadua** huts egiten dute, 1944ko uztailaren 20an. Michel Oronoz

Ez dugu hitz egingo **atentatua** kondenatzen ez duten horiekin! Joxe Azurmendi

Barkatuko didazu amerikarrenganako nire filia, baina ez dugu sentitu inolako sinpatiarik irailaren 11ko **atentatuan** hil zirenekiko. Ana Urkiza

-Atentatu politikoren bat? -galdetu zuen nagusiak, eta orduan ulertu nuen besteek ere ezer ez zekitela, goitizena besterik. Matías Múgica

Astearte goizean, **atentadu** gaitza izan da Indonesian, Djakarta hirian. Herria

Arrunt giro berezianiragan dira bixtan da Espainiako bozak, hiru egun Madrileko **atentadu** izigarrien ondotik. Herria

Biharamunean, lanean, kafearen orduan, lankideak, bezperako **atentatu** odoltsuaren argazkia zekarren Sud Ouest egunkariaren orrialdea. Itxaro Borda

Azken aldi horretan ETAk egiten zituen **atentatuak** zirela eta, inguruan behatze lanetan joan-itzulika zeuden polizia batzuek nortasun txartela eskatu zieten bi gazteei. Pello Salaburu

Atentatu ikaragarri bat egin zen atzo Pierre B... gaztearen kontra; zuzenbidezko ikaslea bera, Normandiako familiarik onenetako batekoa. Josu Zabaleta

Orduan bakarrik jakinen da **atentadu** bat zen ala ixtripu bat, ala ustegabeko gertakaria. Herria

Arrangura hauxe dute haren ingurukoek, president-orderik ez duela oraino ere izendatzen, hala-nola bera bere aitzineko Anonar Elsadatek egin zuen bezala (eta hau sei ilabeteren buruko hil zuten **atentadu** batean) 1975 an zen hori eta geroztik kargutan dute Monbarak, bakarrik bere lehen ministroa duelarik bere ordaintzeko zer gerta ere. Herria

Nabilen aita, beste hogeita bat lagunekin batean, juduek hotel baten aurka egindako **atentatuan** hil zen. Pablo Sastre

Atentatu egileek erran dezakete, ukabila altxa eta hori diote goraki auzitegien aitzinean, ez direla etsaiaren hiltzeaz hobendun, berak bakezale direla, baina bake justua nahi dutela eta etsaiak duela bi mendeotan Euskal Herriaren kontrako gerla eramaten. Itxaro Borda

Kontsidera daiteke, borroka armatuaren espektroaren azpian, **atentatu** egileak eta euskal populuaren zati bat, bere oinarrizko erantzukizun moralaz desjabetua izan dela. Itxaro Borda

Min emoten didan arren, aitortu beharra daukat Canvis Nouseko **atentatua** guk egina izan zela; ez zen Poliziak planifikatua izan. Koldo Izagirre

Madrilgo Correo kaleko **atentatuaren** egilea ETA izan zela dio. Agurtzane Juanena

Irratian **atentatuaren** berri ematen ari ziren, telebistan arratsaldeko programa jasanezinak, eta kalean arratsa gaueko soinekoa janzten. Unai Iturriaga

Aski nuen, leherketa baino lehen, telefonoz beste erakunde edo norbaiten izenean, **atentatuaren** jabetza erreklamatzearekin. Hasier Etxeberria

Azken **atentatuak** eragindako negarrak eta sumindurak horrela ikusi-entzun behar izan zituen, soinurik gabe eta edredoiaren atzetik, Josebak gauerdiko telediario berezi horietako bat kateren batean harrapatu zuenean. Jokin Muñoz

Alde horretatik ezin da torturarik onartu, ezin da korrupziorik onartu, ezin da politikarien edo Ertzaintzaren edo nornahiren aurkako **atentaturik** onartu; eta autobus publikoen erreketarik ere ezin da onartu. Bernardo Atxaga

Hiru **atentatutatik** onik ateratzea lortu zuen Alexandro II.ak; 1881eko martxoan, ordea, ezin izan zion laugarrenari ihes egin: bonba baten eztandak bete-betean harrapatu zuen hiriburuko kale batean. Iban Zaldua

ETAren azkeneko **atentatuaren** aurka udaletxe aurrean zegoen protesta-ekitaldira hurbildu naiz, eguerdian. Iban Zaldua

Loak hartu zuen sofan, **atentatuko** irudiei begira. Unai Iturriaga

Halaber, **atentatuko** egunak bere agintaldiko "gogorrenak" izan zirela gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

2 *atentatu suizida*

Israelek Gaza osoa blokeatu du, azken **atentatu suizida** dela eta. Berria - Mundua

Bonba-kamioi batez eginiko **atentatu suizidak** Poliziaren egoitza nagusia suntsitu du hiriburuan. Berria - Mundua

Azken hilabeteetan Israelen izandako **atentatu suizidetako** ekintzaileak Nabuluskoak ziren. Berria - Harian

Obrak "**atentatu suizidak** goresten» zituela adierazi zuen Mazelek. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atentatu andana (3); **atentatu asko** (3); **atentatu bat egin** (6); **atentatu bat egiteko** (3); **atentatu bat egon** (3); **atentatu bat gertatu** (5); **atentatu bat gertatzeko** (3); **atentatu bat izan** (12); **atentatu bat prestatzen** (3); **atentatu batean hil** (6); **atentatu batean parte** (7); **atentatu batek** (9); **atentatu baten ondorioz** (3); **atentatu batzuen** (3); **atentatu batzuk** (4); **atentatu edo** (3); **atentatu egileen** (4); **atentatu egin ditu** (7); **atentatu egin zituzten** (4); **atentatu entsegu bat** (3); **atentatu faxista** (4); **atentatu gehiago** (3); **atentatu gertatu** (3); **atentatu guztiak** (5); **atentatu hartan** (4); **atentatu hartu ditu** (3); **atentatu hartu zituen** (3); **atentatu hau** (7); **atentatu hauek** (5); **atentatu hauen** (4); **atentatu honen** (7); **atentatu hori** (4); **atentatu horiek** (3); **atentatu horrek** (4); **atentatu horren** (6); **atentatu horretan** (4); **atentatu hura** (4); **atentatu kimiko bat** (3); **atentatu larria** (3); **atentatu oldean** (3); **atentatu saiakera** (3); **atentatu saio** (11); **atentatu saioa** (7); **atentatu saioaren** (4); **atentatu separatisten beldurra** (4); **atentatu suizida bat** (3); **atentatu suizida batean** (3); **atentatu suizida baten** (3); **atentatu suizidak** (5); **atentatu terrorista** (6); **atentatu terroristak** (3); **atentatu terroristatzat jo** (3); **atentatu ugari** (4); **aurka atentatu bat** (4); **aurka izandako atentatu** (3); **aurkako atentatu bat** (5); **azken atentatu** (3); **baina atentatu** (3); **beste atentatu bat** (5); **beste atentatu batean** (4); **bi atentatu egin** (4); **bi atentatu entsegu** (3); **bonba atentatu** (4); **bost atentatu** (3); **burututako atentatu** (3); **dela atentatu** (3); **den atentatu** (4); **du atentatu** (5); **duen atentatu** (3); **edo atentatu** (4); **egindako atentatu** (8); **eginiko atentatu** (8); **egotzitako beste atentatu** (3); **ere atentatu** (4); **etak atentatu** (6); **etaren atentatu** (5); **gertatutako atentatu suizida** (3); **hainbat atentatu** (5); **halako atentatu** (3); **hilabeteetan lau atentatu** (3); **hiru atentatu** (3); **izan ziren atentatu** (4); **izandako atentatu suizidan** (4); **kontra atentatu** (4); **kontrako atentatu** (12); **lau atentatu egin** (4); **madrilgo atentatu** (5); **ustezko atentatu** (3); **zen atentatu** (5); **zenbait atentatu** (3); **zituen atentatu** (5); **zuen atentatu** (4); **zuten atentatu** (4)

agintearen aurkako atentatua (5); **agintearen kontrako atentatua** (3); **agin teari atentatua egin** (3); **atentatua al** (3); **atentatua aldarrikatu** (4); **atentatua atzo** (5); **atentatua baino lehen** (3); **atentatua bere gain** (7); **atentatua da** (6); **atentatua egin izana** (3); **atentatua egin nahi** (3); **atentatua egin zuen** (3); **atentatua egin zuten** (5); **atentatua egitea** (3); **atentatua egiteagatik** (5); **atentatua egiten** (3); **atentatua egitera** (3); **atentatua egotzi** (3); **atentatua etak** (3); **atentatua etari** (4); **atentatua gaitzesteko** (6); **atentatua gaitzetsi du** (5); **atentatua gaitzetsi dute** (5); **atentatua gaitzetsi zuen** (14); **atentatua gaitzetsi zuten** (5); **atentatua gertatu zen** (3); **atentatua ikertzeko** (4); **atentatua izan da** (4); **atentatua izan zela** (3); **atentatua izan zen** (15); **atentatua prestatu** (3); **atentatua prestatzen** (3); **atentatua salatu** (4); **atzoko atentatua** (6); **aurka atentatua** (3); **aurka izandako atentatua** (3); **aurkako atentatua izan** (7); **bigarren atentatua** (4); **du atentatua** (5); **dute atentatua** (3); **egindako atentatua gaitzetsi** (3); **eginiko atentatua** (3); **ere atentatua gaitzetsi** (7); **etaren atentatua** (4); **ez zuen atentatua** (3); **ezkontzan atentatua egiteko** (3); **gaitzetsi zuen atentatua** (7); **galen azken atentatua** (3); **gertatu zen atentatua** (3); **gertatutako atentatua** (4); **hegazkinen aurkako atentatua** (3); **izan zen atentatua** (5); **lehen atentatua** (5); **madrilgo atentatua** (6); **zegoen atentatua** (3); **zuten atentatua** (5)

kontrako atentatuagatik (4)

adierazi zuen atentatuak (3); **atentatuak al** (3); **atentatuak bere gain** (3); **atentatuak bertan behera** (3); **atentatuak egin** (10); **atentatuak egitea** (7); **atentatuak egiten jarraitzen** (4); **atentatuak eragozteko** (3); **atentatuak ere** (3); **atentatuak etak** (3); **atentatuak etari** (5); **atentatuak ez** (15); **atentatuak gaitzesteko eskatu** (4); **atentatuak gaitzetsi zituen** (11); **atentatuak gaitzetsiz** (3); **atentatuak gertatu** (10); **atentatuak gertatzen** (4); **atentatuak ikertzeko batzordeak** (3); **atentatuak ikertzeko batzordean** (3); **atentatuak izan ziren** (6); **atentatuak izateko** (3); **atentatuak prestatzen** (3); **atentatuak saihesteko** (3); **atentatuak salatzeko** (3); **atzoko atentatuak** (13); **aurkako atentatuak** (20); **azken atentatuak** (5); **baina atentatuak** (3); **diren atentatuak** (3); **dituzten atentatuak** (3); **egindako atentatuak** (7); **eginiko atentatuak** (6); **ere atentatuak** (4); **etak atentatuak egiten** (5); **etaren atentatuak** (14); **halako atentatuak** (4); **herenegungo atentatuak** (3); **izandako atentatuak** (10); **izaniko atentatuak** (3); **kontrako atentatuak** (12); **londresko atentatuak** (8); **madrilgo atentatuak** (15); **p atentatuak** (3); **zituen atentatuak** (6); **zuten atentatuak** (3)

atentatuan gutxienez (3); **atentatuan hil** (8); **atentatuan parte hartu** (6); **atentatuan parte hartzea** (4); **aurka egindako atentatuan** (3); **baten aurkako atentatuan** (3); **eginiko atentatuan** (3); **hil zen atentatuan** (3); **izandako atentatuan** (4); **kontrako atentatuan** (5); **zauritu ziren atentatuan** (3)

atentatuarekin zerikusia (4)

atentatuaren atzean (6); **atentatuaren berri** (8); **atentatuaren egile** (4); **atentatuaren egileak** (8); **atentatuaren egileen** (4); **atentatuaren erantzukizuna** (7); **atentatuaren harira** (3); **atentatuaren hipotesia** (3); **atentatuaren lekura hurbildu** (3); **atentatuaren ondoren** (10); **atentatuaren ondorengo** (4); **atentatuaren ostean** (7); **aurkako atentatuaren** (3); **egindako atentatuaren** (5); **eginiko atentatuaren** (3); **etaren azkeneko atentatuaren** (3); **izandako atentatuaren** (3); **kontrako atentatuaren** (4); **madrilgo atentatuaren** (6); **zen atentatuaren** (5); **zuen atentatuaren** (5); **zuten atentatuaren** (3)

atentatuari buruz (4); **atentatuari buruzko** (5)

atentatuei buruz (4); **atentatuei buruzko** (9)

atentatuek eragin (6); **atentatuek ere** (3); **atentatuek ez** (4); **eginiko atentatuek** (3); **halako atentatuek** (6); **izandako atentatuek** (3); **madrilgo atentatuek** (5)

atentatuekin lotura (3); **atentatuekin zerikusia izan** (3)

atentatuen aurretik (9); **atentatuen berri izan** (3); **atentatuen bidez** (3); **atentatuen biktimei** (3); **atentatuen egileak** (6); **atentatuen egileek** (3); **atentatuen egiletza** (3); **atentatuen eraginez** (3); **atentatuen erantzukizuna bere** (3); **atentatuen erantzulea** (4); **atentatuen erantzuleak** (3); **atentatuen gaineko** (5); **atentatuen harira** (9); **atentatuen ikerketa batzordean** (3); **atentatuen inguruan** (5); **atentatuen jomuga** (4); **atentatuen ondotik** (12); **atentatuen ostean** (28); **atentatuen osteko** (5); **atentatuen ustezko** (7); **aurkako atentatuen** (3); **egindako atentatuen** (5); **ere atentatuen** (3); **etaren atentatuen** (6); **gertaturiko atentatuen** (3); **izandako atentatuen ondoren** (3); **kontrako atentatuen** (4); **londresko atentatuen** (7); **madrilen gertatutako atentatuen** (3); **madrilen izandako atentatuen** (7); **madrilgo atentatuen egunean** (4); **madrilgo atentatuen inguruko** (3); **madrilgo atentatuen ondoren** (3); **madrilgo atentatuen ondorioz** (4); **ziren atentatuen** (5); **zituzten atentatuen** (3); **zuen atentatuen** (7)

atentatuetako biktimen (4)

atentatuetan erabilitako (4); **atentatuetan hil** (4); **atentatuetan hildako** (8); **atentatuetan hildakoak** (4); **atentatuetan lehergai** (3); **atentatuetan parte hartu** (7); **atentatuetan parte hartzea** (3); **atentatuetan zerikusia** (3); **egindako atentatuetan parte** (3); **eginiko atentatuetan** (3); **izandako atentatuetan** (5); **madrilgo atentatuetan** (5)

atentatuez geroztik (10)

atentaturen bat (5); **hainbat atentaturen** (3)

hiru atentaturengatik (3)

atentaturik egin ez (4); **atentaturik ez egitea** (3); **atentaturik gabeko** (4); **etak atentaturik** (3); **ez du atentaturik** (3); **katalunian atentaturik ez** (3)

atentatutan parte hartu (4); **atentatutan parte hartzea** (4); **bi atentatutan** (8); **hainbat atentatutan parte** (5); **hiru atentatutan parte** (3)

atentatuz hil (3)

---

atentatugile *iz* atentatu bat egiten duen pertsona.

Atentatu haren ondotik, 20 urteko presondegira kondenatuak izanak dira 3 **atentatugileak**, eta 18 urte berantago datorkie kalte ordain ekonomikoen pagatzeko manua. Herria

Atentatugilea ETA izan dela baieztatzen bada, kalte txikiagoa egingo die inbertsiogile handienen aurreikuspenei. Berria - Ekonomia

Hala ikusi nuen neure burua, **atentatugileak** nire hizkuntza berekoak ziren susmoen aurrean. Berria - Harian

Atentatugileak bertako 9: 30ean leherrarazi zuen bonba-autoa. Berria - Mundua

Legedi berria beharrezkoa da, haren iritziz, era horretan, uztailaren 7ko **atentatugileak** goraipatzea delitu izango delako, besteak beste. Berria - Mundua

---

atentzio 1 *iz* arreta. ik **aditasun**; **ohartasun**.

Gustuko plaza da, bai Amuñarentzat, bere azkenetako erakustaldian ingurukoen **atentzioa** irabazi duelako, eta baita Jexux mutikoarentzat ere, bakarren bat dantzan jartzeko maina erakutsi duelako. Xabier Etxabe

Baffinek, edo gure azpikontzientziak, edo auskalo nork edo zerk jarritako ibilbidetik ihesi abiatu eta ordu batzuetara, helikopteroaren motor hotsa sentitu eta haien **atentzioa** lortu genuen anorakak astinduz. Bernardo Atxaga

Areago: teoria horiek aginteak berak, **atentzioa** desbideratzeko, propio sortu dituen trikimailuak direla uste du. Txema Ramirez de la Piscina

[...] eta hotelean dauden polizien **atentzioa** desbideratzeko sastraka eremu bati su ematea erabakitzen dik eta horrela lortzen dik etakideek ihes egitea [...] Mikel Hernandez Abaitua

Hauxe lan hutsala, nire **atentzioa** beregana desbideratzeko adina indar izan duena! Askoren artean

Ez da zaila, baina, **atentzioa** behar da Ximinoa ezagutzeko: jendartean ibiltzen da, gizarte bilera ugaritan parte hartuz, eta bere ezaugarri nabariena da bizitzen badakiela. Patziku Perurena

Baina liburuak eta eskaintzak etxea miatu zuten polizietako baten **atentzioa** piztu omen zuten, eta eraman egin nahi izan omen zuen. Agurtzane Juanena

Hoteleko mirabeen **atentzioak** erabat zurturik utzi ninduen, ia izuturik. Matías Múgica

Etxeberrik, laketurik, bertzeei baino denbora eta **atentzio** gehiago eskainiz erantzun zien nire aitzinapenei. Aingeru Epaltza

Labur eta gordin esanez: larrua jotzean, nire **atentzioa** beste nonbait jarri behar nuela, beti ere, buru-ariketa batzuk egitearen poderioz. Josetxo Azkona

-Atentzio guztiarekin ari nauk bere liburua irakurtzen ea lerro artean niri zuzenean inoiz agertu ez zidan sentimendurik aurkitzen dudan, gizon horrek ea erremediorik ba al duen hausnartuz irakurtzen diat liburua behin eta berriro, ez zaidala inporta uste al duk? Pako Aristi

Ez zuen Paul D-ren **atentzioa** erakarri nahi, eta orkatilak gurutzatuta konformatu zen. Anton Garikano

Atentzio pixka bat jarri eta begiak ondo txorroxtu: horixe duk egin beharreko guztia. Jesus Mari Mendizabal

Ez zuen **atentziorik** deitu nahi ikasle gazteen aurrean. Joxemari Iturralde

Atentzio osoa horretan ipinita, paretak osatutako eremuz kanpokoa argazkitu zuen, argi izpien lorratzak paper sentikorretik igeltsuzko hormaraino luzatuz. Eider Rodriguez

Pomeisl andrearen berogailu-babes zetaz brodatua, non santa Genovevaren legenda agertzen zen, Dembaren **atentziokoa** gertatu zen, zorigaitzez. Anton Garikano

Atentzio handia jarri ezean ezin ikus daiteke gaur desfile hori, asfaltozko kaleak zeharkatzen dituen desfile militarren horren ezberdina, desfile zibilen hain bestelakoa. Harkaitz Cano

Eta orain biblia xaxtar hori ateratzen duk **atentzioa** desbideratzeko... Harkaitz Cano

2 (izenondoekin)

Gauza guztiei jartzen zien arreta, eta **atentzio** handiz jarraitzen zituen osaba Jakoben azalpenak. Berria - Harian

Atentzio handia jarri ezean ezin ikus daiteke gaur desfile hori, asfaltozko kaleak zeharkatzen dituen desfile militarren horren ezberdina, desfile zibilen hain bestelakoa. Harkaitz Cano

Umm El-Khayrek ez zion **atentzio** handirik eman; ez zituen oso serio hartzen Azizaren hitzak. Pablo Sastre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

ELAko osasungintzako arduradun Izaskun Garikanok Azkarate eta Barandallaren kasuak "osasun **atentzio** eskubidearen urratze larriak" direla azpimarratu zuen, biei ala biei "zigor legediak onartzen duena ukatzen zaielako". Berria - Euskal Herria

Ximurraren azken bidaia hiriko hedabideen **atentzio** -gune izan zitekeenik aurreikusi ez nuen bezala -ergelkeria galanta, nirea, aitzineko egunak ehorzketaz ehorzketa egunkarirako emanda-, ez zitzaidan gogoratu ere Eskalatzaileak praktiketakoa igor zezakeenik gertakariaren berri jasotzera. Aingeru Epaltza

Atentzio fokua ez zegoen, ez niretzat behintzat, bandera harro erakusten zuten gazteengan, edo atzetik beldur aurpegiaz begiratzen zuten besteengan. Alberto Barandiaren

4 ***atentzio eman***

Azken honi egin zion begiratu luzeena, ibileraren graziak eta gainezka zuen exotismoak **atentzio emanda**; zain zeukaten taxi barruan desagertu zenean, ordea, ilehoriarengan ipini zuen arreta. Migel Angel Mintegi

5 ***atentzioa deitu*** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***atentzioa eman*** *agertzen da)*

" **Atentzioa deitzeko** beste edozein arte diziplinak baino gaitasun handiagoa duelako», sartu nahi izan du musika zuzendariak. Berria - Kultura

Izugarrizko erraztasuna zeukan jendearen artean moldatzeko, **atentzioa deitzeko** moduko harreman asko zeuzkan politikatik kanpo ere. Rafa Egiguren

[...] gehiegizkotzat jotzen zutenak, amona Sinforosa bezala; hala ere, nire aldeko bibak eta oihuak izan ziren han nagusi; haiekin batera, guztia esan beharra dago-eta, andregaiaren edertasuna azpimarratzen zutèn oihu eztiak... nik halaxe oroitzen dut behintzat; baina oroitzen dut, halaber, **atentzioa deitu** zidàn iruzkin bat, kexazkoa iruditu zitzaidana eta momentuan ulertu ez nuena. Joan Mari Irigoien

Atentzioa deitzen dit urte haietan asmatutako leloek 2004. urtean gaurkotasun osoa izatea. Berria - Euskal Herria

Eta buelta emanez beste aldetik joateko, paseoan zehar, Bankes jauna zenbait gauzetaz ohartu zen, bestela **atentzioa deituko** ez ziotenak, baldin eta hareazko muino haiek erakutsi ez baliote bere adiskidantzaren gorpua turba gainean etzanda, gorritasun harekin ezpainetan -esate baterako Cam, neskatoa, Ramsayren alaba gazteena. Anton Garikano

6 ***atentzioa eman***

Hamaika kantuetatik **atentzioa ematen** du Venga de donde venga izenekoak. Berria - Kultura

Zure programan euskararekin zerikusia duten gaien artean batek **atentzioa ematen** du. Berria - Euskal Herria

Tarteka, amona gelditu egiten zen bide bazterreko belarren edo loreren batek **atentzioa emanda**. Anjel Lertxundi

Bizpahiru lagun, ijito zein egaxo, ikusi zituen autoan konponketak egiten ari zirenaren itxuratan, eta furgoneta lepo betetzen ziharduen beste familia batek ere **atentzioa eman** zion. Urtzi Urrutikoeetxea

Beti **atentzioa eman** izan didan titulua da hori, Joseba Elosegi eusko gudariak 1970 inguruan idatzi zuen liburu batena baita. Iñaki Segurola

Etxekojaunak aurrera jarraitu zuen hizketan, **atentzioa emateko** moduko ezer esan ez balu bezala. Aitor Arana

Atentzioa eman zion gauza batek: lagun zaharrak ziruditen, ez astebete lehenago elkar ezagututakoak.

Atentzioa ematen duen mutila da Bertol. Xabier Etxabe

Tarteka amamak **eman** dit **atentzioa** : behin eta berriz bazterrak nahastuz, atzera sofan jesartzera eroan behar izan dute sarritan, kexu etengabeak eta begi itsuak zirela-eta, malkoz lausotutako betaurreko lodien atzean -izerdia jariatzen dabiltzan intsektu bi bezala. Urtzi Urrutikoetxea

Adibidez, Bandi Citromi esker askoz gehiago ikasi nuen elkarte, erakunde, anaiarte edo dena delako bitxi hartaz; talde horietako batek -erreskadan nire ezkerretara- heldu berritan ere **atentzioa eman** zidan. Urtzi Urrutikoetxea

Spinozak dio, oro har aski barea den autore batengan **atentzioa ematen** duen pasarte batean, maitearen lotsari eta isuriak maitale berriarenekin nahasirik irudikatzeak areagotu egiten duela jelosia. Markos Zapiain

Gutxiagorekin ere **atentzioa emango** zuen, sinets iezadazu. Migel Angel Mintegi

Aitzitik, irribarre zabala azaldu zen haren aurpegian, eta handik pasatzen zirenei **atentzioa ematen** zien ahots mehe eta zoliaz esan zion. Iñaki Mendiguren

Han **atentzioa eman** dion zerbait topatu du. Pello Lizarralde

Bestea mozkotea zen, **atentzioa ematen** ez duten horietakoa. Anjel Lertxundi

Atentzioa ematen du nola, ia XX. mendera arte, bidaiariek arreta handia eskaintzen dieten janzki "nazionalei". Koldo Izagirre

Bidaiarietako batek **atentzioa eman** dit: emakume altu bat, hazpegi hezurtsukoa, adin zehaztugabekoa, ederra bere gisara; ilea xerlo argiz tindatuta darama. Iban Zaldua

Baina begira, gazte, ezin zara autoei hegan eginarazten hasi **atentzioa emateko** . Iñaki Mendiguren

Atentzioa emateko jartzen dituk honelako sujetuak horrela. Juan Garzia

Ni ez nintzen motots gorridun neskatxa hartaz maitemindu, **atentzioa eman** zidan, besterik gabe. Joxe Austin Arrieta

2000. urte honetan **atentzioa emateko** tamainako kontua izan da, ordea, ota-lorearena. Pello Zabala

Ez da erraz Londreseko metroan **atentzioa ematea** . Ramon Saizarbitoria

Madame Deluc-i **atentzioa eman** zion neskak zeraman soinekoak, hila zen familiarteko batek eraman ohi zuen baten antza zela-eta. Koro Navarro

Hala, bulegora deitzeko prest, telefonoa eskuan hartuta neukala leiho alboan zutik, **atentzioa eman** zidan taxi zuri batek. Karlos Linazasoro

Atentzioa eman dit argazki batek: ekialdeko hazpegiak dituen emakume bat ageri da argazkian bateria jotzen. Harkaitz Cano

Atentzioa ematen zuen beste gauza bat bere zakila zen, noski, une hartan burumakur dilindan zegoena. Aitor Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atentzioa desbideratzeko** (4); **atentzioa eman dit** (5); **atentzioa eman zidan** (15); **atentzioa eman zion** (6); **atentzioa emateko** (6); **atentzioa ematen du** (4); **atentzioa ematen duen** (3); **atentzioa ematen zuen** (3); **batek atentzioa eman** (3); **eman dit atentzioa** (4)

---

ateo **1** *iz* jainkoa badenik ukatzen duen pertsona.

Hiru mende geroago, Hobbesek berak, esan dudan bezala, **ateoa** izanik, orri asko eskaini zizkion gai teologikoei. Esteban Antxustegi

Eskolan katoliko hezia eta hazia dena, Alberto, **ateo** bihurtu delarik, **ateo** hezia izan dena, Aleksej, fededun bilakatu da. Edorta Jimenez

Ondoren erakusten dut **ateoak** Jainkoaren etsaiak direla eta, uste dut, bati etsai deitzea sarritan bidegabe deitzea baino gogorragoa dela. Esteban Antxustegi

Askok kritikatu dute ateismoa ez bidegabekeriari, baizik eta arduragabekeriari egotzi izana; are gehiago, batzuek interpretatu dute **ateoekin** etsai bigunegi gisa azaldu naizela. Esteban Antxustegi

Askok kritikatu dute ateismoa ez bidegabekeriari, baizik eta arduragabekeriari egotzi izana; are gehiago, batzuek interpretatu dute **ateoekin** etsai bigunegi gisa azaldu naizela. Esteban Antxustegi

2 (izenondoekin)

Ateo ofizialek bere horretan utzi zuten. Edorta Jimenez

3 *izond* jainkoa badenik ukatzen duena.

Manifestu **ateo** eta antiklerikala? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baimen daitezela biraorik iraingarrienak eta obrarik **ateoenak** berehala, salbuespenik gabe, gure haurtzaroko jostailu beldurgarri horiek gizonen bihotz eta buruetatik zeharo erauzi ahal izateko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

ateondo *(ETCn **21** agerraldi; orobat **atondo** ETCn **323** agerraldi) iz* ate ondoa. ik **atondo**.

Ateondo handi bat zeharkatu, eta bigungarriz estalitako atetxo baten aurrean gelditu ziren. Jon Muñoz

Telefonoa eta bisita-liburua ziren atezain hura **ateondoko** ugazaba, boss-a, egiten zuten bi tresnak. Iñaki Zabaleta

---

ateorde *iz* atearen ordekoa, atearen gisakoa.

Nik alde egiten dut, **ateordea** itxi, eta bakarrik geratzen zara. Juan Garzia

Kontu handiz itxi zuen **ateordea** ; iluntasunari, gero bereizi nuen zirritu bat gora-behera, erabatekoa iritzi nion tenore hartan. Juan Garzia

---

atepe *iz* ate azpia.

Katuak kontserbategiko **atepean** usnaka ibiltzen diren gisan, zinez. Koldo Izagirre

Pasilloaren beste aldean, komuneko **atepean** , argi zerrenda. Iñaki Iñurrieta

Agurea azkena izan da patiotik barruratzen, eta behe solairuko **atepean** behako bat egin du atzerantz, zerua despedituko balu bezala. Koldo Izagirre

Ohitua dago **atepeetatik** odol putzuak hedatzen ikusten. Koldo Izagirre

Eta ni **atepeko** alfonbra gogoan, Bluefields umeleko zapata bustientzako ehun baldartu hura. Joseba Sarrionandia

Otso erraldoi bat aipatzen zen, ile gris, ia zurikoa, dagoeneko bi haur jana, emakume bati besoa kendua, eskualde hartako ate zakur guztiak itoa, eta inolako beldurrik gabe sartzen zena itxituretan barrena, **atepetik** usaina hartzera joateko. Josu Zabaleta

---

atera, ateratzen *(ETCn **125.499** agerraldi)* **1** du *ad* (zerbait) dagoen tokitik at ezarri, barnetik kanpora eraman; mahaira ekarri; lortu; ondorioztatu; argitaratu; kiroletan, pilota jokoan jarri.

Badirudi Morrisonek ispilu bat hartu, lurrera botata hautsi, eta printza horietan islatutako irudiak ematen dizkigula eskura, geuk osatu eta ondorioak **atera** ditzagun. Anton Garikano

Azken batean, biziki kezkatzen gaituen gai horrek berak adiskide egin gaitu bi egileok, eta gaiari eskaini dizkiogun ordu luzeotan **atera** ditugun ondorioetako batzuk idaztea baino ez dugu egin. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Erdi parekoek ez dute inola ere **atera** nahi. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero, aitak bere ogia sei zati egin zuen, eta gure artean banatu zituen, sabeleko mina zeukala aitzakia **atereaz** ; te katilukada bat besterik ez zuen hartu, eta zigarro bat. Juan Kruz Igerabide

Inguruabar bortitz horretan gertatzen da bizibidea **ateratzeko** eguneroko borroka, batzuen mesedegarri eta besteen galgarri dena. Lopez de Arana

Kartak **atera** eta poker-jokoan entseatu zarete. Xabier Montoia

Baina zer **atera** nahi duzu honekin guztiarekin? Josu Zabaleta

Kontu honetan ez duzu irabazirik **atera** behar. Edorta Jimenez

Haren belaunaldiak egin bi mundu gerlen ondorioak **atera** zituen Robert Schumanek. Piarres Xarriton

Erretratua **atera** behar digutela konturatzen garenean, jarri nahi izaten duguna. Arantxa Iturbe

-izen kuriosoa zela pentsatu eta Eñautek Winston paketean geratzen ziren azken zigarro biak **atera** zituen. Sonia Gonzalez

Haragia labetik **ateratzera** nindoala, bat-batean, telefonoak jo zuen. Daniel Landart

Edukiaren gehiena Morris Hallerekin eztabaidatu dut, eta onura handia **atera** dut haren iruzkin eta iradokizunetatik. Itziar Laka

Eta bizitza luzea izan, eta ezin, bada, egunean eguneko ogibidea **atera** . Patxi Zubizarreta

Eskuineko poltsikotik musuzapia **atera** eta kopeta eta lepo inguruak igurtzi zituen azken tanta lehortzeko asmoz. Joxemari Urteaga

Ez nuke nahi inork ulertzerik egiaztapen horretatik **atera** beharreko ikaskizuna etsipena edo nihilismoa denik. Juan Garzia

Kolonialismoa naturari etekina **ateratzen** eta herria aurrerabidean bultzatzen ahalegintzen zen. Gotzon Garate

-Tori, Koronela - esan zuen, lasai-lasai, diru-pitxerretik txanpon bat **atereaz** . Mirentxu Larrañaga

Tratulariek, Lurbirako nazio guztiei begi emanda daudenez, batetik **ateratzen** dutena bestera eramaten dute. Iñaki Iñurrieta

Ez dakit nondik **aterako** ote dudan hori guztia garbitzeko behar den adorea. Eskarne Mujika

Klase bateko kideek bakarrik, eta ez guztietakoek, **atera** zuten onura egoera hartatik. Iñaki Mendiguren

McGonagall andereñoak farfaildun musuzapia **atera** eta betaurrekoen azpian arin igurtzi zituen begiak. Iñaki Mendiguren

Jostun diploma zuen, gaztetan eskola batean **aterea** . Pello Lizarralde

Hala ere, luze gabe hasiko zitzaien minbiziaz hitz egiten senarrari eta hurkoei, alargunak ez baitzekien nondik **atera** zuen halako adorea bere emazte zenak. Imanol Zurutuza

Horregatik esaten zaie hitz egiteko beren aurrekoez, aiton-amonez duten oroitzapenez, nongoak ziren, zertatik **atera** zuten bizimodua, nolako tratua zuten beraiekin. Arantxa Iturbe

Etxetik Foruzaingoak **atera** zuen, atxilotuta. Edurne Elizondo

Gogoan dut nola **atera** nituen, banan-banan, eta nire esku-ahurrean jarri nituen. Mirentxu Larrañaga

Jo eta jo segitu zuten apur eder batean, nik gimnasio-saioetan hareaz betetako zakuari jotzerakoan bezalako soinua **atereaz** . Anjel Lertxundi

Zurrun nabaritzen nuen neure burua, baina berak gero eta kementsuago egiten zidan; nire titi-muturrean pausatutako ezpainek bentosa bat ziruditen, handik niri atsegin esanezin bat **ateratzen** zidan bentosa leuna. Juan Martin Elexpuru

Hain bortizki asaldatu zuen herioaren beldurra gorputz osoan hedatzen zen, hezurretaraino sartzen zen, bere buru zurbila **ateratzen** zuen gorputzeko poro guztietatik. Jose Morales

Irmo jarri zen gero, burua atzera eta bularraldea **aterea** . Inazio Mujika Iraola

-Goxoa hago -erantzun nion boltsan kiribilduta nekartzan sokak **atereaz** . Juan Martin Elexpuru

Lehen aldiz hamazortzi urterekin hasi nintzen nire kolkotik **ateratako** iritziak idazten, filosofiaz hitza besterik ezagutu gabe. Jenaro Garate

Bere lan-jantziko poltsikotik billete-sorta bat **atera** nuen, aurreko asteazkenean bildutako dirua. Joseba Urteaga

Eta, amorrazio beltzak harturik, ezpata **atera** eta, sastakada bakar batez, biei moztu zien burua. Patxi Zubizarreta

Ez denaren baitan aieneka ari den hori **ateratzen** du poetak ezkututik, ezereza **ateratzen** du ezerezetik bertatik, eta izena ematen dio, eta itxura. Joxerra Garzia

Aitonarekin **ateratako** hiruzpalau argazki zituen amonak gaumahaiaren gainean. Joan Mari Irigoien

Bainujantzi zaharra, bosgarren udaberria segidan betea zen ordurako, armairutik **atera** nuen goizean topatu nuen Honoré. Joxan Elosegi

Ez dago jakiterik nola moldatzen zen, baina sudurraz **ateratzen** zuen zaratak turutaren hotsa ekartzen zuen gogora. Jose Morales

Emazte ohia eta biok salmentatik **ateratako** dirua erdi bana egitekotan geunden, eta bankuan laurehun mila dolar aski eta sobera izango ziren azken hatsa eman arte bizitzeko. Oskar Arana

Baina, Gauzen izaeraz irakurrita, inork ez zukeen ondoriorik **aterako** , hemen grinei eta desira askatuei ekiteko predikurik dagoenik. Xabier Amuriza

Senarrak, Herminiok, gurgur eta kurrinkak **ateratzen** zituen, eztarriarekin baino gehiago sabelarekin hitz egiten baitzuen. Jasone Osoro

Sarea gora eta behera ibili ondoren, pare bat mila pezeta baino ez zuen **atera** arrantzale bakoitzak gau guztiko lan gogorraren trukean. Hasier Etxeberria

Pistola **atera** zuen ahurrean ikusgarri, Astra zahar bat. Koldo Izagirre

Horrekin diru pixkatxo bat **ateratzen** genuen, bizio txikietarako nahikoa. Jon Arretxe

Gutunazala urraturik, herio-dantza baterako albiste ematen zuen -eguna, ordua, lekua...- bertatik **atera** nuen txartelak. Anjel Lertxundi

Fitxategi batean bilatu ondoren, emakumeak barruan paper batzuk zituen kraft paperezko gutunazal bat **atera** zuen. Joseba Urteaga

Txartel bat eman zion François andreari, eta andreak txanpon handi bat **atera** zuen oihalezko zorro txiki batetik. Karlos Zabala

Zortea baduzu, kanpora **aterako** zaituzte eta autoa eramango dizute. Pako Aristi

Eskua ziztu bizian zebilkidan uretan plisti-plasta zarata txikia **atereaz** . Aitor Arana

Halako batean emaztea konturatu egin zen, gizonak beraren diru guzia **aterea** zuela eta bere kontuan ezarria. Gotzon Garate

Gauerdi aldera, haize bero eta zakarra **atera** zuen etxe inguruan; ohetik jaiki nintzen kanpo-leihoak ixtera. Ander Irizar

Orduan, erregeak honela egin zuen zin: -Ala Jauna, atsekabe orotatik **atera** nauena! Elizen arteko biblia

Sieg Heil! hasi ginen lagunok, eta, kanta bukatutakoan, nik garagardoak **atera** nizkien lagunei eta baita soinujoleari ere nire urtebetetzea ospatzeko. Anjel Lertxundi

-Sukaldean -esan zuen Evans jaunak, basoak **atereaz** . Koro Navarro

Atetik kanpora **atereak** zituen Honorék nire puska guztiak, edertasun-gaien laginak, azpiko arropa, mantal zuria eta galtza gris estuegiak. Joxan Elosegi

Errezeta-taloitegia **atereaz** esan zidan: "Ospitale nagusira joango zara". Joseba Urteaga

Benetan diotsut, ezin dut kaskezurretik **atera** . Mirentxu Larrañaga

Andreari ahoa aztertu dio, hortz bat eta hagin bat ukitu dizkio, eta aldiko hiltzen ari balitz bezalaxe okertu da emakumea, ulertu ezinezko hotsak **atereaz** . Josu Zabaleta

Haren pentsamenduak, hitz-ekintzotatik **atera** behar ditugu. Juan Garzia

-Hi baino talentu handiagoko bat beharko duzue niri hesteak **ateratzeko** ! Inazio Mujika Iraola

Gureak hantxe egingo zuela sinetsi nuen-eta, gaur da eguna ataka hartatik zein indarrek **atera** gintuen ez dakidana. Edorta Jimenez

Ez da zarata **ateratzea** soilik, arerioari hitza zikintzeaz gain, jakin egin behar da norberaren lexikoa ere sortzen, zaintzen, hedatzen. Iñigo Aranbarri

2 da *ad* irten.

Atera bezain laster, ordea, oso geldi geratu zen jendaurrean, hanka batean bermatua, eta etorritako bide beretik joan zen. Lander Garro

Oppenheimerri hasperen ozena **atera** zitzaion. Fernando Morillo

Kolpe arin bat entzun zen liburutegiko atean, eta, hilobitik **aterea** balitz bezain zuri, zerbitzari bat sartu zen hanka-punttetan. Koro Navarro

Egunkariaren egoitzara joan, eta guardia zibila ikusi nuen **ateratzen** , film amerikarretako poliziaren antzera, orro eta tutu, harro, aurpegiak estalita eta armak bistan zituztela. Joxerra Garzia

Joxek eskua hankartera eraman eta galtzei tira egin die birritan, eta berriz abian jarri aurretik eztarritik **aterea** dirudien soinu bat jaulki du. Pello Lizarralde

Horregatik **ateratzen** da kea ile xerloa balitz bezala estolderietatik gora. Gotzon Garate

Urte hartan berean Libération egunkari berria plazaratzeko egitasmoan sartu zen buru belarri -hurrengo urtean **atera** zen kalera lehen alea-. Monika Etxebarria

Higuingarriak, beti portuetako estolderia inguruan, zulo beltzetatik zer **aterako**, eta gero usteljana barrura. Paddy Rekalde

Aterako al gaitun hemendik? Iban Zaldua

Azkenean, pixka bat nekaturik, errekatik **atera** ginen, ertzeko belarretan xukaderak zabaldu eta eguzkitan etzateko asmoz. Aitor Arana

Beitu zelan **ateratzen** den bere zorrotik! Jon Arretxe

Soraya bainugelatik **aterako** da, arropak erortzen utziko ditu, eta beraren ondoan sartuko da ohera. Oskar Arana

Arlote horietako bat, momentu hartan, bidera **atera** zitzaion adin bateko jaunari, zeina, bidenabar esan, ongi jantzita zegoen eta bidaiari bat iduri zuen, hiri arrotz bateko monumentu eta edertasunak ikustera aterea. Matías Mujika

Gainerako bidaiariei bezain garestia **ateratzen** zitzaien baina bazen alderik batzuen eta besteen artean. Lutxo Egia

Bere poltsikotik **aterea** zen dirua, ala bera ez zen besterik 'soldaduen soldata banatzen zuen bitartekaria' baino? Auskalo. Edorta Jimenez

Lauaxetaren heriotza, Lauaxetaren desira: zapaldurik eta ahanzturatik **atera** zain egon den iragana. Joseba Zulaika

Betirako pasioek bataz beste sei hilabete irauten dute; eta gero, dena ongi **ateraz** gero, bizitza osorako amodio bihurtzen dira, hau da, gehienez ere beste bi urte iraun dezakete. Patxi Zubizarreta

Arlote horietako bat, momentu hartan, bidera atera zitzaion adin bateko jaunari, zeina, bidenabar esan, ongi jantzita zegoen eta bidaiari bat iduri zuen, hiri arrotz bateko monumentu eta edertasunak ikustera **aterea**. Matías Mujika

Hau da, Parisetik bidaia bat egitera **atera** zen, atsegitera, turismoan ibiltzera, besterik gabe. Koldo Izagirre

Kalera **atera** zen, lur sail zabalera, garabi eta eskaileren azpira. Koro Navarro

Etxetik **atera** da goizeko zortzietan alboko kafetegian ogia erosteko. Pako Aristi

Balistikak ez du denborarik izan azterketarik egiteko, baina Lincolnek ahopeka esan didanez arma beretik **atereak** dira inguruan aurkitutako sei bala-zorroak. Joxemari Urteaga

- Zer moduz **atera** zait nere harrilana, adiskide? Patziku Perurena

Kezka zekarten, ez zuten baiezkorik gabe **ateratzeko** asmorik. Iñigo Aranbarri

Txukun-txukun jantzita **ateratzen** da arratsaldero paseatzera, eta gizonen bat ondoan gelditzen zaionean - izozki postu batean, esate baterako -, gertatu zitzaiona kontatzen dio berak: Bernardo Atxaga

Aterea zen lehen zirkulutik. Joseba Urteaga

Larria da, oso larria, ezinbestekoa baita ilehoria aurkitzea nire adiskide eta bezero dena Martuteneko espetxetik **ateratzeko**. Migel Angel Mintegi

Honek begiak altxatu zituen bestea sartzen ikusi orduko, eta, buruaz ezezko keinu bat eginez, eskua ohe gainean eztiki pausatu zuen, bere larruzko zaku higatua hartu, eta **atera** zen. Elena Touyarou

Abenduan jakin genuen askatasuna sinatuta **atera** zela, eta zain jarri ginen, etxera noiz iritsiko. Jokin Urain

Kontakizun hau behingoz abian jartzeko beste hots bat baizik ez dut falta: zurezko xake-piezek beren kutxatik **ateratzean** egiten duten abarrots atsegina. Alberto Ladron Arana

Lizarrari hostoa **atera** baino lehen... Koldo Izagirre

Ez dakit non **aterea** den. Pako Aristi

Autotik **ateratzeko** agindu zioten. Xabier Olarra

Eskolatik **ateratakoan** aitarengana joaten baita entseatzera. Bernardo Atxaga

Sasipetik **aterata**, ondoko belaia besarkatu du. Aingeru Epaltza

Bi bider **aterako** da, eta biei eskaini diegu lehentasuna, han-hemenka azaltzen diren beste pertsonaiei ere tartetxoa ematen saiatu bagara ere. Patxi Ezkiaga

Lau egun, Gernikako infernutik **ateratzea** erabaki zuenetik. Alberto Ladron Arana

Dena dela, eta itxura denez, Albert Allenek, Barbararen aitak, ez zion asko lagundu bizitza triste eta galdu batera zeraman bide labainkor hartatik **ateratzen**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erreka bazterreko alde sarrienera **atera** da. Pello Lizarralde

Horregatik, zaku horretatik **ateratzen** diren gauzak ez dakigu jateko diren, sano bizitzeko diren, sukaldean baliatzeko diren... Edorta Agirre

Paseatzera **ateratzen** zirenean askotan sentitzen zuen bere eskutzar hori lepoaren gainean. Jokin Muñoz

Mapak zein beste lagungarriak berriki ingelesez **atera** den argitalpenari zor dizkiogu: Francis of Assisi. Askoren artean

Uda amaieran edo udazken hasieran **atera** ohi diren egun zoragarri horietako bat izan zen. Joxemari Iturralde

Haurrak ordu bata inguruan **atereak** ziren etxetik beren adineko bi neskatilekin. Gotzon Garate

Baina amets eta ilusio berriak piztu ziren eta haiexen peskizan **atera** ginen euskaldunok plazara. Pello Zabala

-Jagobaren hitza ere atzean lagatzen dik horrek! -adierazi zuen irribarrez Paulo harakinak, mantala txahal odol zipriztinekin karrikara **atera** zenak. Felipe Juaristi

3 (adizlagunekin)

Goazen!, utzi dena eta goazen! esan orduko, korrika **atera** ginen, herri irteerarantz, eta atzean oso gertu entzuten genituen zaldien ferra hotsak. Jon Maia

Amnistia, izø Zigortzea garestiegi **aterako** litzaiokeen gaizkileenganako, Estatuak erakusten duen bihotz zabaltasuna. Xabier Olarra

Oker handia izan da Weylerren kontrako atentatua txarto **aterea**... Koldo Izagirre

Urte haietan, Bob Dylan delako bati oholtzatik ahalik eta lasterren **ateratzeko** agindua eman zioten gitarra elektriko batekin ausartu zenean hegaz airean kantatu nahirik. Pello Salaburu

Argindarra luzatzeko kable bat zeukan kanpora **aterea**, eta dena konektatua zegoen. Koro Navarro

Neba handik ahalik eta lasterren **atera** behar zuela otu zitzaion, ospitaleak arima txikitzen ziola. Unai Elorriaga

Idazleei modu naturalean **atera** zaie gaia eta naturaltasunez hitz egin dute gaiaz. Ana Urkiza

Egingo nuke, gainera, ia-ia batere nekerik gabe **atera** zaiola doinu zaharra itzulpen honetan. Patxi Altuna

Seguru asko, kartel txukun bat edo pegatina ikusgarri bat inprimatzea merkeago **aterako** da eta beraiengana iristeko bide askoz zuzenagoa da. Txema Ramirez de la Piscina

Eta baxoko lehen partea egitera gindoazela, azken proban lehen **atera** nintzen. Piarres Aintziart

Atentatu bat egon bada, arazoa ez dago guri barrutik **ateratzen** zaigun sentimenduan. Joxe Azurmendi

Gaurkoan bakarrik bi errollo amaitu eta dagoeneko argazki errebelatuekin agertu dira, eta batean baino gehiagotan Danekin batera agertzen ziren edo hura bakarrik ezustean **aterea**. Patxi Zubizarreta

Aita, Sebastian, mikelete artean eraman zuten kartzelara emakume bati laguntzeagatik, baina berehala **atera** omen zuten. Iñigo Aranbarri

Nagusia, neskaren espantuekiko sinesgogor, baina hala ere barkabera, jangelatik itzuli zenerako, Emmak jadanik **aterea** zuen tiraderatik errebolber astuna. Juan Garzia

4 *agerira atera*

Eskuak dardaraka ekin zion emakumearen sekretuak **agerira ateratzeari**. Migel Angel Mintegi

Bertako inor ez zen agur haren lekuko izan, babeslekuetan ezkutatu baitziren beldurrez, eta ez ziren **agerira atera** eguzkia irten eta atzerritar ausart haiek Santutegitik alde egin arte. Agustin Otsoa

Baina **agerira atera** zituzten kontuak tamalgarriak izan ziren eta amore eman zuen. Anton Garikano

Bizikletan ibili, dantza egin, ziztu egin, munduari begiratu, gazte sentitu, gazte naizela jakin, horixe nahi dut nik, baina ezin dut hori **agerira ateratzen** utzi, zeren pentsa ezazu denok erostaka hasiko bagina edo bekozko ilunak jarriko bagenitu... Josu Zabaleta

Oroitzapen mingarriak **agerira atera** eta Fionni pena handia emateko arriskuan egon zen, mutila iragana gainditzen hastekotan zegoen unean. Joanes Urkixo

Horixe da Unamuno-k beti egiten duena, horrela **agerira ateratzen** zaiola ezkutuko bere egiazko motibazioa. Joxe Azurmendi

llargia elurhodei hartatik **agerira atera** zen eta gau izoztuan zelaiko soroek distira egiten zuten eta berriz hormakristaltxo haien guztien ttiki-ttaka aditu nuen, horietako bakoitzaren barrenean segundo orratz koloretsua mugituko balitz bezala. Fernando Rey

5 *ahotik atera*

Bereak diren arren, bere **ahotik ateratakoak**, harritu egiten da hitzokin. Oskar Arana

Odola bizkorrago isur zekion, ur berotan sartu bide du hanka, eta zainak ebaki orkatila inguruan; eta odolusten hasi da, eta odolusten jarraitu du azken gogoetak **ahotik atera** ahala. Imanol Zurutuza

Baietz ihardetsi zidan gomita hori ene **ahotik atera** orduko. Janbattitt Dirassar

Gauza asko entzuten genituen goiko solairutik, artista pintore baten **ahotik atera** zitezkeela pentsatu ere egingo ez genituzkeenak. Pello Lizarralde

Norbaiten **ahotik ateratako** kontuak askotan entzuten direnean, azkenerako ez da jakiten epika non bukatzen den eta non hasten den lirika. Xabier Etxabe

Asteazkenean, izeba Milagrosen hileta-elizkizunen ondoko kafetegian, nire andrearen **ahotik ateratako** "Fernando, bagoaz?" horrek oihartzun durunditsua utzia zidan belarri barnean. Aingeru Epaltza

Horrelako deskribapenak ez dira ohikoak saskibaloian, eta are gutxiago kontrario baten **ahotik ateratzen** badira. Berria - Kirola

Esaldia azken asteotan Nafarroako gobernuko presidentearen **ahotik atera** dela dirudien arren, urteak dira esan zutenetik. Berria - Ekonomia

Baina hurbildu eta argazki bat atera nahi izan dugunean bihotzen urradura **ahotik atera** zaie, bortitz, oso bortitz: "fuck you!», oihukatu digute. Berria - Kultura

Ahotik ateratzen dena, berriz, bihotz barrutik dator, eta horrek bai egiten duela gizakia zikin! Elizen arteko biblia

-Bai. Eta zuek ez al duzue inoiz Liburu Santuko pasarte hau irakurri: Umetxoen eta bularreko haurtxoen **ahotik atera** duzu gorespena? Elizen arteko biblia

Eta ondoren gertatu zen elkarrizketa ere hitzak **ahotik ateratzerako** nire buruan idatzita agertu zitzaidan deblauki. Pako Aristi

Ozta-ozta entzun daiteke esa-ten duzuna eta, gutxi hitz egiten duzunez, ez dut galdu nahi zure **ahotik ateratzen** den hitz bakar bat ere... Xabier Paya

Ez **ahotik atera** zure sekretua, ene maitea, eta batez ere bakarrik jokatu: ez dago konplizeak baino gauza arriskutsuagorik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jarraitu egin dizute! - izan ziren irakaslearen **ahotik atera** ziren hurrengo hitzak. Alberto Ladron Arana

6 *aldea atera*

Hiru bat metroko **aldea ateratzen** zion... Iñaki Mendiguren

Azkenean 4 untzeko **aldea atera** zenioten; non egon zen gakoa? Berria - Kirola

Hamabost segundoko **aldea atera** diot, minutu doia duen pieza batean! Anjel Lertxundi

Beste behin Frantziako Tourreko erlojupekoan Marinelli frantses indartsuari irabazi zion, eta hainbeste minutuko **aldea atera** zion, ze gero Marinelli hori ez zen sekula iritsi helmugara. Pello Lizarralde

Egia zen, ordea, eta harritzekoa, gainera, zortzi hilabete haietan Arkimedesen idazlanekin aurrez aurre topo ez egin izana; eta, horretan, noski, **aldea ateratzen** zion mafioso zahar hark. Jon Muñoz

Ezagutzen ditut bi pago, Arantzazuko Ama Birjina koroatu zutenekoan, komentutik beste alderako pendizeko harkaitzondoan landatu zirenak, eta batak besteari bost eguneko **aldea ateratzen** dio beti, urtero. Pello Zabala

7 *argazkia atera*

- Eta utzi egin diek **argazkia ateratzen**? Koldo Izagirre

Beragatik izan ez balitz ez nintzen San Frantziskora joango, eta ez nizun **argazkia ateratzeko** eskatuko. Bernardo Atxaga

Argazkilari bat honantz etortzekoa zen zuri **argazkia ateratzeko**... Lopez de Arana

Protokolo huts bihurtu dira, **argazkia ateratzeko** besterik ez. Ana Urkiza

Ikusi behar zenuen Peterrek jarri zuen aurpegia, **argazkia ateratzekoa** zen! Josu Zabaleta

Argazkia atera nahi diet baina ezin da; han barruan ezin da ezer argazkiratu. Pako Aristi

"Euskara bizi publikoan" zioen banderolaren gibelean **argazkia atera** dute CRS lerroaren aitzinean. Herria

Han, berebiziko **argazkia atera** zuen: neska txiki bat ageri da, kokoriko lur elkorrean, burua eta ukondoak lur gorriaren gainean. Iñigo Aranbarri

Aurrena **argazkia atera** zuen koaderno beltzetik. Joxemari Iturralde

Oroitzen naiz gazte batek esaten zidala Lutero kondenatu zutela **argazkia atera** ez zuelako. Pello Salaburu

Hor Creevey gaztearekin zeundenean disimulatzen lagundu dizut..., berak niri ere **argazkia ateraz** gero, zure ikaskideek ez dutelako pentsatuko hain handiustea zarenik... Iñaki Mendiguren

Eskuineko aulkia, mahaitik pixka bat apartatua, hutsik dago, **argazkia ateratzeko** jaikia baita argazkilaria. Imanol Zurutuza

Argazkia atera zuen sakelatik. Karlos Zabala

Uda garaia bide zen **argazkia atera** ziotenekoa. Lourdes Oñederra

Argazkia ateratzera joaten zen sarritan. Joseba Urteaga

Atera kontuak! Fartsa bat egin nahi zuten, gurekin **argazkia ateraz** auzia nola edo ahala ixteko. Berria - Harian

Espainiako Kopako finaleko posterraren **argazkia atera** berri du. Berria - Kirola

8 *argira atera*

Artistak pertsonaiaren atzean ezkutatu zuen bere lana, eta balio hori **argira ateratzen** ez badugu, museoa hutsala litzateke. Berria - Kultura

La Otxoa ezagun egin zen, batez ere, Liberate! kantuarekin: "Ederra izan zen hura, askok itxaroten zuten aitzakia izan zelako armairuko ateak ireki eta **argira ateratzeko**». Berria - Euskal Herria

Gauaren isilean, bat-batean eginiko sokak erabiliz, harresiak jaitsi zituzten, eta, aldiriko etxeen hondakinetan zein sasietan ezkutaturik, eguna jaio arte itxaron zuten **argira ateratzeko**. Jon Alonso

berarekin jaitsi zen putzura eta ez zuen ahaztuta utzi presondegian; azkenik, errege-makila eskuratu zion eta menpean eduki zutenen gain agintea eman; **argira atera** zituen iraindu zutenen gezurrak eta betiko ospea eman zion berari. Elizen arteko biblia

Eskua luzatu eta eri-mamiz ferekatu nuen, zorroa hautsi eta bere eduki preziatua **argira aterako** zen momentua amets nuela. Aingeru Epaltza

Ondoren jaka berriro jantzi eta zubipetik egun **argira atera** zen eta eguna hasteko, lehenbiziko gauza egin zuen tabako denda batera sartu tabakoa erostera. Matías Mujika

Ezkutuko hura **argira atera** zitzaidan unean Ordiziara joan bezperan nengoen, Telleria madarikatuaren monumentua zartarazteko materialaren bila. Xabier Mendiguren Elizegi

mendeko lau aitasantu garbitasunaren aurkako bekatuak **argira ateratzeko** agintzen, eta ez, ostera, parrizidioa. Juan Martin Elexpuru

Arkano hauek, alabaina, ez dira egun **argira ateratzekoak**, hemendik hogeita hamar urtetsura arte baino. Juan Garzia

9 *argitara atera*

Dena dela, biak bizi izan ziren isilpe eta itzalpe samarrean, haien lanak ez zirelako XX. mendea arte **argitara atera**. Koldo Zuazo

Inportanteena ez dira ondorioak ere, beharbada, ezpada, etorri ahala kontzientziaren zakuan pilatzen joan naizen guztiak **argitara atera** eta ordenan paratzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Lurpeko, sakoneko, ezkutuko, itzalpeko, azalpeko, ilunpeko bizi erroen misterioa, kanpora edo **argitara ateratzea**, horratx funtsean mihurak sinbolizatzen duena. Patziku Perurena

Jainkoak, ordea, lotsagarri utzi zuen: Ahikar **argitara atera** zuen eta Nadab, berriz, betiko ilunbetara bidali, Ahikar hil nahi izan zuelako. Jose Antonio Mujika

"Lau Eskualdeetako Erresuma" sumerikoan Ur-etik gobernatzen zuten sumertar enperadoreen mende bildutako kode goiztiar bat izan zen, dirudienez, inperioa berriro ezarri zuen Babiloniako Hamurabi amorritak geroago promulgatu zuen kodearen oinarria, K.o. 1901ean Mendebaldeko arkeologo moderno J. de Morgan-ek **argitara atera** zuena. Iñaki Mendiguren

Sekretu hura ez zen **argitara ateratzen**. Pello Lizarralde

Norbait jaioarazteko modu bat baino gehiago dago, eta horietako bat da norbaiten Nilon eskua sartu, harria aur-kitu, bitan zatitu, eta bihotza **argitara ateratzea**, arimari argi egin diezaion. Juan Kruz Igerabide

Oraindik ez zen heriotza, baina jadanik ez zen bizitza; zerbait berria zen, harrigarriki ezezaguna, ez erabat zentzugabea, baina zentzuduna ere ez, eta hain sakona, misteriotsua eta gizatasunetik kanpokoa, ezen ezinezkoa baitzen **argitara ateratzea**. Jose Morales

Jakin nuen, bada, tabakontzi horien historia eroa **argitara ateratzearen** ondorioz, hain zuzen, sentitu zuela berak Gizarte Ordenaren kontrako gorrotoa. Matías Múgica

Are eskubide gehiago zeureganatuko dituzu oraino, amore emanik, nik nahi bezala, sekretua segurki gordetzeari, zeren sekretu hori **argitara ateratzeak** zuhauri eginen bailizuke kalte, eta heriotza lekarke zuk dagoeneko zauritua duzun ama baten bihotzera. Jon Muñoz

Hortaz, joko horretan ez dago merkataritzarik, ez merkaturik, eta halatan, esku ikusezina **argitara ateratzen** da erabat, korporazioaren estrategiak gidatzen duen eskua, alegia. Iñaki Heras

10 *armairutik atera*

Armairutik ateratzea prozesu bat da, lehenik egin behar duenarentzat, eta, ondoren, haren familiarentzat. Berria - Harian

Armairutik ateratzeaz asko hitz egiten da gaur egun, baina, fijatzen bazara, seropositiborik ez da ateratzen armairutik. Berria - Harian

Beharbada kopuru aldetik gutxi izan ziren halako gehiegikeriak sufritu zituztenak, baina aukera guztientzat zegoenez, ez zen inor ausartzen **armairutik ateratzen**. Berria - Euskal Herria

11 *aurpegia atera* aurpegia eman, norbaiten alde egin.

Ez dakit txantxetan esan zuen, baina nik **aurpegia atera** nien, berriro ere, argudio asko ez nuen arren. Ramon Saizarbitoria

Sanz jaunak ez du galtzen denborarik enpresari **aurpegia ateratzeko**, eta sindikatuekin eta langileekin sartzeko. Berria - Euskal Herria

Amari **aurpegia ateratzen** niola eta puntu hartan atzera egiteko asmorik ez nuela ikusita, sutu egin zitzaidan Sara. Joan Mari Irigoien

Baina behin da berriz ta azpikeriaz hori sinets arazi nahi dutela ikusirik, egiaren alde **aurpegia ateratzera** behartua nago. Koldo Zuazo

12 *aurrera atera*[1] du *ad* egiteko zailez, proiektuez, helburuez eta kidekoez mintzatuz, nahi edo espero zena lortu.

Inori jaramonik egin gabe **aurrera ateratzen** dute haurra edo galtzeko nora joan behar diren badakite. Gotzon Garate

Aurrera atera nahi bazuen, kontu handiz eta maleziaz jokatu behar zuen. Aritz Gorrotxategi

"Klasikoak gaur" egunero **aurrera aterako** banuen, materiala hara eraman beharrean nintzen astean behin edo. Pello Zabala

Julian bera izan omen zen dirua irabazitakoa, fabrika bat sortu eta **aurrera atera** zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Salmentak goraka, osasun ona eta familia pozik, eta semeek bizimoldea **aurrera atera** zuten. Patxi Zubizarreta

Ikusi ditut baldintza horiek guztiak bilduta ere **aurrera atera** ez diren ikuskizunak. Berria - Kultura

Kolpea **aurrera atera** balitz, ikus zitekeenez, berriro 1936ko "garbiketa" zabala zetorren Euskal Herrira. Txillardegi

Ez kezkatu, **aurrera aterako** gara. Fernando Rey

Aurrera atera nintzen orduko, barre txikitan hasiak ziren besteak. Jesus Mari Mendizabal

Hala ere, **aurrera atera** den akordio horretatik letra txikia egin zait niri jakingarri. Hasier Etxeberria

13 *aurrera atera*[2] da *ad* aurrera egin.

Haatik, emakumeen egitekoa kulturgintzan atzeko aldetik **aurrera atera da**, oholtzara, erakustokira, bozgorailuetara igaro da Berria - Kultura

Peppone **aurrera atera zen**, ilun: jaka erantzi, mahaiari heldu, hortzak estutu, gora jaso eta belardira jaurti zuen. Koldo Biguri

Hala ere, **aurrera atera den** akordio horretatik letra txikia egin zait niri jakingarri. Hasier Etxeberria

Inbidiagatik, noski, bera **aurrera atera delako**. Bernardo Atxaga

Salomon Jaunaren errege-aulkian jarri zen, bere aita Daviden ordez. Gauza guztietan **aurrera atera zen**, eta Israel osoa esaneko izan zuen. Elizen arteko biblia

Aurrera atera nintzen. Jon Muñoz

Kolpea **aurrera atera balitz**, ikus zitekeenez, berriro 1936ko "garbiketa" zabala zetorren Euskal Herrira. Txillardegi

Gogotik maite zuen bizia, gogotik gozatu bere ondasunak eta senitartekoak oparotasunean **aurrera atera izana**. Patxi Zubizarreta

14 *azpiak atera*

Eta Marlenek **azpiak ateratzen** dizkio uste zabaldu horri: kapela erostearen ironiaz, Brooken aurreiritzia eraisten du. Anjel Lertxundi

Baina, horrekin batera, ezin zen eztia bildu, ongarria egiteko **azpiak atera** edo artaldea belaira eraman. Pello Salaburu

Gogoratzen naiz ukuiluetako **azpiak ateratzen** ari ginen goiz batean pazientzia galdu eta maldizio batean hasi zela, gure kide andaluziarrak harrituta uzteko moduan hasi ere, eta nik, giroa arintzearren, ez kexu izateko esan niola, arrosarena bezain ederra zela simaurraren usaina. Bernardo Atxaga

-Baserrian animaliekin kontuz ibili beharra dagoela: gure aitonari behin lau saihets puskatu zizkioan etxeko zezenak, hari **azpiak ateratzen** ari zela. Xabier Etxabe

15 *aztarrenak atera* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Behin **aztarrenak aterata**, mahatsondoak (Vitis vinifera) sendabidean jartzeko, aurrea hartzeko zein tratamendu eginez atzea nola dantzatu badakigu. ETC-prentsa

Audiokapsula aurkitu, zure ahotsa entzun, eta **aztarrenak ateratzera** zihoan. ETC-literatura, saiakera

16 *babak eltzetik atera* garaile gertatu, nagusitasuna lortu; egoera larri bat gainditu.

Ez zezatela begirunerik espero alferrek ez eta **babak eltzetik ateratzea** besteen esku uzten zutenek ere. Urtzi Urrutikoetxea

Arrakasta handiko medikua da, baina gero **babak eltzetik ateratzeko** orduan bere eskuak ez dira aitari buruan duen tumorea kendu eta ebakuntza behar bezala egiteko gai. Harkaitz Cano

Beste behin ere, gazteek **aterako** beharko dizkiote **babak eltzetik** taldeari, unerik zailenean. Berria - Kirola

Eltzetik babak norberak **atera** beharra izango zen istorio triste hartatik barneratutako ikasgaia. Xabier Mendiguren Elizegi

Bakar-bakarrik **atera** beharko nituela **babak eltzetik**. Fernando Rey

- **Babak**, zeuek **atera** beharko dituzue **eltzetik**. Koldo Izagirre

Manipulatzaile halakoa! Ai, ene! Horrek **aterako** dizkizu **eltzetik babak**. Patxi Iturritegi

· Ni bezalako eskuxuri bat, oraingo burgeskera melenga honetatik, orduko giro latz hartako **eltzetik babak ateratzen** haste hutsak ere, lotsa ematen dit. Patziku Perurena

17 *bere neurritik atera*

Bazekiat, hala ere, kartzelara sartu bezain laster "tratu txarrak" salatuko dituzuela, beti bezala, gauzak **bere neurritik aterata**. Rafa Egiguren

18 *bere/nire... onetatik atera*

Eta Cam ez zegoen prest eta James ez zegoen prest eta Nancyri ogiartekoak egiteko agintzea ahaztu eta Ramsay jauna **bere onetatik atera** eta atea danbateko batez itxita irten zen kanpora. Anton Garikano

Nahiz eta praktikantea ez izan, zenbait hipokresiak, hainbat bekaizkeriak, beretarren artean bidea libre duten zenbait infamiak **bere onetatik ateratzen** baitute. Jon Alonso

Gizona **bere onetatik atera** bezain pronto, etxera joango nintzen. Koro Navarro

Haren morroia ate aurrean zegoen, negar eta negar, **bere onetatik aterata** etsi-etsian. Josu Zabaleta

Despota baten gisa gobernatzen zuen etxea, Andres **bere onetatik ateratzen** zuen erretxinkeria eta abandonuzko, despotismo eta arbitrariotasunezko nahaste batez. Josu Zabaleta

Senide bakar bat ere ez du; bakarrik bizi da ez-dakit-nondik jaso duen neska lotsagaldu eta **bere onetatik ateratzen** duen batekin... Karlos Zabala

Epailea **bere onetatik atera** zuen eta berak agintzen ziona egitera mugatzeko errepikatu behar izan zion behin eta berriro. Berria - Harian

Hilketei dagokienean, Arrieta da hiltzailea, **bere onetatik aterata** dabil-eta txostenaren bila. Migel Angel Mintegi

19 *bere/nire...onetik atera*

Eta odolak su gabe dirakinez, amaren hitzek bere **onetik atera** zuten. Patxi Zubizarreta

Neska lotsagorritu egin zen arren, hitz haiek ezin izan zuten bere **onetik atera**. Patxi Zubizarreta

Guardiei deika aritu zela bere **onetik aterata**. Bernardo Atxaga

Batzuk bere **onetik ateratzen** dira ni, pertsona autista anormal hau, hara azaldu, eta ekipamendu guztiaren diseinua egiteko gauza naizela ikusita. Xabier Olarra

-Nor da gizon hau, Gordon? -esan zuen Harryk, bat-batean ahotsa dardarka, bere **onetik aterata**. Oskar Arana

Aita bere **onetik aterata** ibili zen, bera eta Perkins izeneko azti zahar bat bakarrik baitaude bulegoan. Iñaki Mendiguren

-Gorroto dut -marmar egin zuen Susiek-: neure **onetik ateratzen** nau. Lopez de Arana

Bazen neure **onetik ateratzen** ninduen zerbait, zera: arrabioak putzu bakoitzean gainezka, arrabioak istil xixtrin bakoitzean bor-bor... eta, oro har, atergabeko landare-narotasun hura, malastasun-usain hura, umotasun ustelduzko kirats hura. Joxe Austin Arrieta

Jende honek nire **onetik ateratzen** naik, Sabino -esan zuen Carlosek apal-. Bernardo Atxaga

Horregatik, Floraren amak nire bihozgabekeria aipatu zuenean nire **onetik atera** ninduen. Ramon Saizarbitoria

Ez genituzke gauzak beren **onetik atera** behar. Karlos Linazasoro

Bere **onetik ateratako** jende-kasta bat duk. Antton Olano

Iruditzen zait bakardadearen gainean idatzitako testu edo artikulu asko bere **onetik ateratakoak** direla, eta idatzi dituztenek beste gauza asko estaltzeko erabili izan dutela bakardadea. Berria - Gaiak

· **Onetik ateratzekoa** zen, higuingarria, izatearen eta ezagutzaren auziari buruzko hitzaldiak entzutea, noiz eta gure inguruan dena baitzen misterio, estalkirik gabe agertzeko irrika bizian Juan Garzia

20 *bere/nire... senetik atera*

Santuak Jainkoari otoitz egiten zion bitartean, bat-batean abadeak ezohiko berotasuna eta ordura arte sentitu gabeko gozotasuna sentitu zituen barnean, eta, **bere senetik aterata**, konortea galdu zuen. Askoren artean

Bere aurkariak konplota zuzentzeko erakusten zuen jarrerak **bere senetik ateratzen** zuen, politikarako gogoa kentzen zion. Karlos Zabala

Bere senetik aterata, haserre bizian aulki batez lurra jo, eta deabruetara bidali zuen Nastasia Petrovna. Jose Morales

Soldaduak duda-mudatan egon ziren hasieran, baina Erregek, **bere senetik aterata**, agindua oihuka eta mehatxuka berretsi zuenean, urkatu egin zituzten. Martin Anso

Ikuspen nardagarria zeharo benetakoa iruditu zitzaion, zauriak eta beldurrak **bere senetik atera** baitzuten. Agustin Otsoa

Teok, orduan, guztiz **bere senetik aterata**, erdi eroturik, brikolaje kaxatik zerra elektrikoa hartu eta lepoa moztu zien bi-biei. Josetxo Azkona

Alegia, **bere senetik ateratzen** zuen. Xabier Olarra

Bost axola zaizkio Diana Charles Erregina, baina Steveren jarrerak **bere senetik ateratzen** du. Lutxo Egia

Eta haserre ere haserre zegoen, galdararen, zezen bat bezala higitzen zen su gaineko piztiatzar temati haren kontrako amorru odolgose eta neurrigabe batek **bere senetik aterarik**. Juan Garzia

Bere senetik ateratzen dute irudikeriok. Juan Garzia

21 *berearekin atera*

Beren ikuspegitik, **berearekin ateratzen** den bakoitzeko, hurrengo urtean hamar izango dira saiatuko direnak. Xabier Olarra

Agian aurpegian zeraman zapiari esker **berearekin aterako** zen, eta inork ez zuen ezagutuko, eta gero emakumeak aitari deitu eta eskatuko zion ezer ez esateko. Xabier Olarra

Aingeru gaiztoa zeru-argiaz jantzi ohi da eta arima zintzoari arrazoia ematen hasten zaio, gero **berearekin ateratzeko**; alegia, pentsamendu zuzen eta santuak ekarri arima zintzoaren arabera, eta gero pixkanaka irteten saiatu, bere asmo zital ezkutu galgarrietara arima ekarriz. Patxi Altuna

Ez diet utziko **berearekin ateratzen**. Fernando Rey

22 *bertsoak atera*

Badirudi, Andresek **bertsoak atera** ondoren, jendearen esamesetatik ihesi, Bartzelona aldera egin zuela hanka Zelestinak. Patziku Perurena

Sagardoa ere ondorioak uzten hasi da Añorgakoengan, eta haietako batzuk, dagoeneko, bertsolariak aditzeko baino bertze zerbaiterako daude, eurei **bertsoak ateratzeko** moduan, kasik. Berria - Kultura

Egun hartan, **bertsoak aterako** dizkizuete, eta eresi hau kantatuko: "Zeharo larruturik gaude! Jaunaren herriaren ondarea arrotzen eskuetara joan da; nolatan kendu diote gero? Sinesgabeen artean banatzen dituzte gure soroak". Elizen arteko biblia

23 *burutan atera*

Lan taldeak, noski, informatika behar izan du halako lan ederra **burutan ateratzeko**. Berria - Harian

Zuhurki kontseila, gida, goberna eta **burutan atera**. Pello Salaburu

Logika bera erabiliz, pentsatu zuen, Enperadore Horiari tituluak dekretuen bidez kendu eta gero dekretuen bidez ere benetako jabeei itzultzen bazizkien, lor zezakeen aitak azken bururaino eramaterik izan ez zuen matxinada isil eta odol-isurketarik gabea **burutan ateratzea**. Felipe Juaristi

Baina damaskinatzaileen egitasmo hura ez zen **burutan atera**. Berria - Kultura

Duranek esan ohi du erreforma **burutan ateratzeko** PSC konbentzitu beharra egongo dela eta, espainolek esaten duten bezala, por ende, PSOE ere bai. Berria - Euskal Herria

24 *droga atera* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Drogoso hitzak, euskaraz, iruzur eta errieta zalea esan nahi du; **droga ateratzen** duena iskanbilatsua da; droga egiten duena, ke saltzaile iruzurgilea. ETC-prentsa

Eta jaitik gutxi dauka askatasunean, berdintasunean eta alai ospatu nahi dutenen aurka gorrotoarekin, herrarekin, **droga ateratzea**, urterik urte. ETC-prentsa

25 *ederki atera*

Ederki atera zitzaizkion aldaketak atzo Scolariri. Berria - Kirola

Han gintuen Belascain, Ibarburu, Lazcano eta Teillery trinketlariak Michel Etchetorekin eta **ederki atera** ere dira, joan den hamar urte huntan bakan egin zuten bezala. Herria

Izan ere, eta nik hala uste, kondairek dioten bezalakoak izan baziren, eta beraien ekintzak ikusita, hortik hara, gorputzez kolorez eta aurpegiz nolakoak ziren, **ederki atera** liteke filosofi jatorrean. Patxi Ezkiaga

-Ez dira asko izaten hain **ederki ateratzen** direnak. Koro Navarro

"Oso **ederki atera** zara argazkian, David!", esan zidan niri sukaldera sartu ginenean, programa erakutsiz. Bernardo Atxaga

26 *eguzkitara atera*

Berrogeiek, berehala, hesteak **eguzkitara ateraz** hil zuten bere burua. Xabier Olarra

Eguzkitara atera dira Kixoren saihets-izterrak, oro hezur eta larru. Aingeru Epaltza

Itsuek bezala sumatzen ditu: trafikoaren harrabotsa iristen zaio, epeltasuna nabaritzen du kale estuetatik **eguzkitara ateratzen** direnean, argi gorriak irudikatzen ditu autoaren geldialdien harira... Imanol Zurutuza

Nire irudimenean, andrea aspiragailuaren hodiarekin kaskezurra **eguzkitara ateratzen** ari zitzaion puntuan pasatu zen, paretik, Ximurraren Volvo mutur-luze urdina. Aingeru Epaltza

Hitz egin nahi dut loaren onurez, jatearen eta edatearen plazerez, zure gogoari gertatzen zaionaz ordu bietako **eguzkitara ateratzen** zarenean eta egurats epela sentitzen duzunean zure gorputza inguratuz. Oskar Arana

Hori dela-eta bada São Paulon hainbeste jende Bahiako guztiei Endlösung aplikatuko lieketena, Bahiako guztien gibelak **eguzkitara ateratzea** beste irtenbiderik ez baitzaie bururatzen. Karlos Zabala

Eguzkitara ateratzen ditu bularrak; zerbitzarien aurrean jotzen du banjoa eta ez dio axola irri egiten badiote ere. Oskar Arana

Pikari bigorrar batzuek indarrez eragotzi ez baliote, garunak **eguzkitara aterako** zizkion Loiola zauriruari. Aingeru Epaltza

Trapu berriak **eguzkitara ateratzen** ibiltzea bezala duk hori. Antton Olano

27 *enkantean atera*

Edvard Munchen hainbat obra **enkantean aterako** dituzte otsailean Londresko Sotheby'sen. Berria - Kultura

Orain, Stewarten familiak **enkantean atera** nahi du garai hartako eskutitza eta baita zezen-plazako ibileraren gainean Hemingwayk ustez idatzitako ipuina ere. Berria - Kultura

Gasteiz-Bilbo zatiko obrak **enkantean atera** nahi ditu aurten Espainiako Gobernuak . Berria - Euskal Herria

28 *erdiko hatza atera* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Kolesterolaren paseoan egindako aurkezpenean Frank Gehry arkitekto sonatuak egin bezala, nik ere Bilbo eredu horri **erdiko hatza atera** eta erlearen eztena erakutsi eta eskaintzen diot. ETC-prentsa

29 *errekatik atera*

Joana Albretekoak ez zuen nornahi hautatu bere fidelak **errekatik ateratzeko** . Aingeru Epaltza

30 *erremate an atera*

Baina arreta bestera joan zitzaion, enkantegile batek erreboilo eder bat **erremate an atera** eta deiadar egin zuenean. Karlos Zabala

31 *errematera atera*

Horretarako, gaur bertan enkante bat martxan jarri dute Interneten. www.es.ebay.com helbidean, hogeita hamar gauza inguru **errematera atera** dituzte Caballitoko langileek, gehienak kirolari ezagunek emandakoak. Berria - Ekonomia

32 *ertzak atera* *(corpusean ez dago; ETCn 7 agerraldi)*

Ezer ez da zuri ala beltz, ezer ez da dirudiena, eta zuek **ertzak atera** nahi. ETC-literatura, saiakera

33 *eskandalua atera* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Nik Ahohandiri tira egin nion eta Zorriemeari esan nion, patxada bilduz, **eskandalua ateratzeari** uzteko farolaria eta aguazila pasatzen ziren bitartean, eta besteak aldameneko bebarru batean ezkutatu ziren. ETC-literatura, saiakera

Bestetan sobera edanta, eskandala ateatzen da 'bestetan sobera edanda, **eskandalua ateratzen** da'. ETC-zientzia, zuzenbidea

34 *ezerezetik atera*

Norbait gai bazen nik ikusi bezala loreak **ezerezetik ateratzeko** , Lakatosek edo Luteziak berdin sor zezaketen beren eskuekin bonba bat, nire goiko agintariei eta haiez goragokoei hainbeste beldur ematen zien bezala. Matías Múgica

Zer zen gizon haren meritua? Bere burua **ezerezetik atera** eta gailurreraino eraman izana, self made man, bere burua moldatutako gizona izatea, horra. Joxerra Garzia

"Ibarretxeren Plana ez da **ezerezetik ateratako** zerbait», eta horixe frogatzera dator liburua, Iñaki Anasagastiren esanetan. Berria - Euskal Herria

Bai, amodio hazia edo poesia bera bezalaxe duzu hurritza, **ezerezetik ateratzen** beti bizia. Patziku Perurena

Prestatu nintzen **ezerezetik ateratzen** , pixkanaka ontzen, loratzen ikusteko: azkenean, existentziak sortzerakoan harrapatuko nituen ustekabean. Monika Etxebarria

35 *gaia atera*

Mary Annek **gaia** atera zuen berriro. Bernardo Atxaga

Bada **gai** bat Kleimanek eta Janek maiz ateratzen dutena: klandestinitatea. Josu Zabaleta

Magnetismoaren **gaia** atera zen, Donatoren trikimailuak eta Charcot doktorearen esperientziak. Josu Zabaleta

Gero ehizaren **gaia** atera nuen berriro. Josu Zabaleta

Ostera ere saiatzen da bortxaketaren **gaia ateratzen** . Oskar Arana

36 *geure onetik atera*

Biok **geure onetik aterata** geunden. Berria - Kultura

Hamazazpi urtetan ere **geure onetik ateratzen** gintuen delako esaldiak. Aingeru Epaltza

Horrelako jainko batek **geure onetik ateratzen** gaitu amorruaren amorruz, eta betiko botako dugu ahanzturaren zokora, nondik Robespierre doilorrak atera nahi izan duen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hektolitroetako pitxer handiak haientzat ziren; guk, zaldiekin batera edan; hura parranda handia, denak mozkortuta **geure onetik aterata** , zaldiak zein gizonak. Fernando Rey

-Nonbait, azkenaldi honetan, denok gaude urduri samar, **geure onetik aterata** -sartu nintzen tartean. Joxemari Iturralde

37 *gurdia bere bidetik atera* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Baina sintomen erroetan galdu du bidea, nire ustez: "Arineketan presaka, "ea antolatzen dugun mahai bat Nafarroan, bertze bat Baskongadetan" diote batzuek. **Gurdia bere bidetik ateratzen** ari gara. ETC-prentsa

Ez ezazu **gurdia bere bidetik atera** ! ETC-literatura, saiakera

38 *hinkik atera gabe* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Hinkik atera gabe , mamu bat bezala zetorrela susmatu nuen, baina edanak epeldua nengoen eta nola hasi kontra egiten. ETC-prentsa

Berehala erantzutekotan egon zen Esteban, baina **hinkik atera gabe** jarraitu zuen gizonei begira. ETC-literatura, saiakera

39 *hitza atera*

Shakespeareren **hitza atera** eta ikusleak hura topatu dezan saiatzen naiz, eta berak interpretatzea. Berria - Kultura

-Ahotik **hitza ateratzen** zuen aldiro, zuek mendratzeko zen. Aingeru Epaltza

Irakasle haiek sartu nahi zieten guztia sinesteaz gain idolatratu ere egiten baitzituzten, haien ahotik jainkoaren **hitza aterako** balitz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitza atera ahal izan nuen noizbait. Koldo Izagirre

40 *hitzik ez atera*

Ez, ez zekien zer egin behar zuen, **hitzik ez ateratzea** onena. Koldo Izagirre

Nik neureari eutsi behar nion, Maritxuk besteen ahaideei esan ziezaien zerbait larri gertatzen zela gure komunan, nik **hitzik ez ateratzea** ez zela arras normala. Koldo Izagirre

41 *hizpidera atera*

Baina gaur berriro ere atera da **hizpidera** Clinton eta Lewinskyren arteko kontua. Patxi Zubizarreta

Espainiako *zonceren*[=pellokerien] artean, bada hiria aipatzen den aldiro **hizpidera** ateratzen den bat, turismo orriak eta entziklopediak dituena benetako zilar turuta. Iñigo Aranbarri

Argudio bat **ateratzen** digute beti **hizpidera:** umeek ezin dute beren nahia legez adierazi. Berria - Gaiak

42 *hotsa atera*

Baserri-ate takarrei **hotsa ateratzeko** gogor jo beharra dago, eta ez dizkio inori hatz-ttonttorrak alferrik minarazi nahi. Pako Aristi

Hotsa ateratzen zuen: plas, plas eta gero berriro plas, adreiluen arrakalan sarturik hantxe jira eta punpaka zebilen ereinotz orri baten erdian. Juan Garzia

H ermesek, gizakien begiak sorgintzeko eta lo daudenean esnarazteko erabiltzen duen urrezko kaduzeo ederra eskuan zeramala, ezkongaien arimei deitu zien, eta atzetik zetozkion **hotsa ateraz** . Juan Kruz Igerabide

Sakeletan, ibiltzen den bakoitzean **hotsa ateratzen** duen giltzari handi bat,. Antton Olano

Haizeak putz eta txistu egiten zuen arbolen adaxka biluzietan eta sasietan, eta semaforoan transmisiokateei **hotsa aterarazten** , eta semaforoaren besoari bultza egin eta dardararazten, baina eztul egitean odola purrustaka ateratzen zitzaidan. Fernando Rey

Gero, zuzenean joan zen ateraino, takoiekin **hotsa ateraz** , eta deitu zuen. Xabier Olarra

Nola ekarri ordea hitzetara, gaindegian nik lizar **hotsa atera** ordu behorrek behetik egiten zuten irrintziak bihotzondoan eragiten zidan birbirrekoa! Patziku Perurena

Goizean goiz, egun-hasierako ariketa fisikoak egitera behartzen gaituztenean, belarrak kristal hautsiaren **hotsa ateratzen** du gure oinpean. Anjel Lertxundi

Txokearen kolpearekin **hotsa ateratzen** omen zuen garbi-garbi. Santiago Iruretagoiena

Eskaileretan behera abiatu zen Gabriel, **hotsa ateraz** . Irene Aldasoro

43 *iltze-ateratzeko*

Soldagailuak, azkoinak, iltzeak eta **iltze** -ateratzekoak, zizelak, pintzak, kurrikak, artaziak eta altxaprimak. Joxan Elosegi

44 *ipurditik atera*

Aitak ez zukeen hitz erdirik ere esango ezta hiru golde gari erne-berri zapaldu edo mahatsondo ilara bat **ipurditik atera** bagenio ere. Koldo Biguri

-1475ean, Turia ibaiak Valentziako zubiak hondatu zituen, batzuk **ipurditik aterata** eraman zituelarik. Pello Zabala

Izatez, Ayub izeneko agure palestinar batena zela arbola, asentamendu berriak sortu asmoz, soldadu juduek hondeamakina batez **ipurditik atera** zuten arte. Hasier Etxeberria

Kalte handiak dira: arbolak **ipurditik aterata** , adarrak erorita...». Berria - Harian

45 *irabazle atera*

Halabeharra eta zoria elkartzen direnean, zorigaiztoa ateratzen da gehienetan **irabazle** . Joxean Agirre

Arrakastaren edo hutsegitearen edo erruaren ondoren, **irabazle** nahiz galtzaile irtendakoan. Juan Garzia

Irabazle irten denak zer ospatu duelako, galtzaileak pena nonbait ito behar duelako, edateko arrazoia dute denek. Xabier Montoia

Bush ateratzen bazen **irabazle,** esan zuen, ahaztea geneukan "kontserbadore errukitsuen" gaineko kalaka inozo hori guztia. Oskar Arana

Irabazle ateratzen dena txapeldun izango da, dudarik gabe. Berria - Kirola

46 *karranka atera* karranka egin, karrankatu.

Ilara batean jarriak zeuden, enkantearen barrutia ixten zuten barren kontra, hango burdinei **karranka aterarazten** . Bere burua madarikatu zuen, ateak izugarrizko **karranka atera** baitzuen orduan. Karlos Zabala

· Eta gogoan dut belarriak zuzendu nituela leihorantz, istant bat lehenago txitxarrek **ateratzen** zuten **karranka** hots ikaragarria egiaz ahitu ote zen baieztatzearren. Ramon Saizarbitoria

47 *keak ateratzeko bide* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Bestalde, diseinu- eta eraikuntza-elementuen eta suteak itzaltzeko instalazio-sareen arteko lotura dela-eta, teknika batzuk azalduko ditugu (aurreko atarteak, eskailera babestuak eta abar), zenbait datu osatzeko, hala nola zutabe lehorren, aireztatzeko eta **keak ateratzeko bideen** eta abarren kokapena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Keak ateratzeko bideetan , aireztatzeko hodietan eta abarretan ager daitezkeen zirrikituak itxita eta beharrezkoak diren zuloetan izurriteak ekiditeko sareak ipinita egongo dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

48 *kontu atera*

"To, inurri bat!" esanen du, **kontu atera** gabe hura izan litekeela nire euskarria nire mintzakidea nire xake-aurkaria nire gai jartzailea nire amorragarria nire ilusioa nire bizia. Koldo Izagirre

49 *kontua atera*

Guztira, **kontua atera** . Edorta Jimenez

Ez du Madrilgo ordezkaritzaren **kontua atera** . Rafa Egiguren

Bitartean, joan-etorria egiteko behar ziren egunen **kontua ateratzen** zuen egunero Tobitek. Egunak igaro eta semea ageri ez zela ikusirik,. Elizen arteko biblia

eta esan zioten: "Zure zerbitzariok geure agindupean geneuzkan soldaduen **kontua atera** dugu eta ez zaigu inor ere falta. Elizen arteko biblia

Gela horretatik ez nuela **kontua atera** behar. Alberto Barandiaren

Kontua ateratzen dut, hortaz, zoriontsu nintzela. Jesus Mari Mendizabal

Beste aldi batean -ordurako unibertsitatean nenbilen-, artzain batekin egokitu ginen lagun bat eta biok Inazio santuak lo egindako benta hartan bertan, eta bere burua bota berria zuen nekazari baten **kontua atera** genuen. Bernardo Atxaga

Erdi azti erdi maltzur agertu nintzaion: hitzaurrearen **kontua atera** aurretik, obraren egitasmo harrigarria deskribatuko nuen. Juan Garzia

Eta osaba Praixku "suhi española".. . **kontua atera** ! Txillardegi

Orain urte batzuk, Itziarko gau-martxa egiten ari zela, alboan Agiña Txikia bera egokitu zitzaion eta, ustekabean, apustuaren **kontua atera** . Xabier Etxabe

Pozoitzearen **kontua atera** denean? Juan Garzia

Bi data horien artean Robert Villenave auzapezak deklaratua zuen Angeluk ez duela bere **kontua ateratzen** BAM elkargoaren barnean. Herria

Gero, berunaren **kontua atera** zen eta aldatu egin zen dena. Berria - Kirola

50 *kontuak atera*

Aurrez **kontuak ateratzea** beti ere hobe omen da. Pello Zabala

Beren **kontuak aterata** ibiltzen dira horiek beti, eta buruz dakizkite irabazpide guztiak. Patziku Perurena

Kontuak atera nola egongo nintzen. Joxan Elosegi

Kartzelara eramango dituzte, eta **kontuak aterako** dituzte: kartzelan dauden gaizkile gehienak etorkinak dira. Joxerra Garzia

Zenbat aurreratu dugun, hortik **kontuak atera** . Joxerra Garzia

Itsasontzia ez zen mugitu ere egiten, hortik **atera kontuak** . Hortik **atera kontuak** sinpatiaren bideskak zein bihurriak diren. Bernardo Atxaga

Auzo deitzen diogu, baina 500.000 biztanle dauzka, **atera kontuak** . Pako Aristi

51 *koplak atera*

Txunditurik geldituko dira denak Jaunak eramango zaituzten herrietan, **koplak aterako** dizkizuete eta iseka egingo. Elizen arteko biblia

Plazan eserita, marmarka ari zaizkit, mozkorrek **koplak ateratzen** dizkidate. Elizen arteko biblia

Gustura beheratuko luke autoko segurua, atzekoek **koplak aterako** zizkiotela jakin ez balu. Urtzi Urrutikoeetxea

Irakasle jaun txit prestua, ikasle gaztearekin maitemindua; ez dakit **koplak aterako** zizkizuten, baina txisteak behintzat bai, zaude ziur. Xabier Mendiguren Elizegi

52 *meza atera*

Baina, badakizue, marinelak herriko seme jatorrak dira, eta bihar San Sebastian eguna denez, San Bizenten **meza** bat **ateratzeko** eskatu didate. Martin Anso

53 *mingaina atera*

Urrutiratu denean, jendeari **mingaina ateratzekotan** egon naiz, baina neure burua kontrolatu dut, **mingaina ateratzeak** lotsa adierazten baitu hainbat triburen kodean. Anjel Lertxundi

Eta, **mingaina aterata** , hantxe geldirik geratu arteko beren egin guztiak sumatzen nituen. Josu Zabaleta

Ondoren, **mingaina atera** zuen ekialderantz, mendebalderantz, iparralderantz eta hegoalderantz. Julen Gabiria

Mingaina ateratzen diezu metro-bagoietako bidaiariei. Lutxo Egia

Amorraturik nago, gelditu egiten naiz, tu egiten dut, negar egiten dut; gero espaloi ertzean esertzen naiz, eta **mingaina ateratzen** diet paretik pasatzen diren guztiei. Eskarne Mujika

Hainbesteraino sutu nintzen, non **mingaina atera** bainien kale-kalean. Josu Zabaleta

Baina musuak bihotz-taupadak gerriraino jaitsi eta endredatu zizkidala sentitu nuen une berean, Antoniok **mingaina atera** zuen nire ahotik, eta gerezi-txortenak bi korapilo zituela erakutsi zidan. Jasone Osoro

54 *mundutik atera*

Ez dizut eskatzen **mundutik ateratzeko**, Gaiztoarengandik babesteko baizik. Elizen arteko biblia

Deitore, heriotzari **mundutik atera** gaitzan uzten dion munduarengatik. Oskar Arana

Frantzisko ez da **mundutik ateratzen**, "mundu bat" uzten du, injustizia eta bazterketa sortzen zuen sistematik ateratzen da. Askoren artean

55 *nagiak atera*

Anna altxatu eta **nagiak atera** zituen. Lopez de Arana

Besoak eta zangoak zabaldu zituen **nagiak ateratzeko**. Jon Muñoz

Nagiak atera nituen ohetik jaiki gabe. Joseba Sarrionandia

Ahozabalka, **nagiak ateratzen** ditu, ordenagailua itzali, langelatik irten eta logelara joaten da. Antton Olano

Nagiak ateratzen dituen katakumearen antzera. Fernando Morillo

Crookshanksek arin salto egin zuen saskitik, **nagiak atera**, aharrausi egin eta Ronen belaunetara salto egin zuen. Iñaki Mendiguren

Tabernatik irten zenean hiria itzartzera zihoan, **nagiak ateratzen** ari zen gauaren azken itzalek, egunsentiaren estreinako argiek eta kutsadurak ehunduriko izara azpian. Migel Angel Mintegi

Nagiak ateratzen ari da, oraindik ere, akzio merkatua. Berria - Ekonomia

56 *neure onetik atera*

Frantses eskolak ematen dizkiot Juriri, haren ahoskera txarrak **neure onetik ateratzen** nau. Felipe Juaristi

-Ez neban **neure onetik aterata** jarri behar -esan zuen goibel-, baina edozelan be ez dau funtzionatu. Iñaki Mendiguren

Barkatu atzokoa, baina net artega eta **neure onetik aterata** nengoen eta, ça va de soi, askatu beharra neukan. Patxi Zubizarreta

Neure onetik ateratzen nau askotan... Xabier Paya

Neure onetik atera ninduen. Jasone Osoro

Baietz eta ezetz aritu ginen, gero eta haserreago, gero eta ozenago, harik eta **neure onetik atera** ninduen arte. Joan Mari Irigoien

Estreinako alditan, **neure onetik ateratzen** ninduen Umbertori erakusten zion jarrerak. Anjel Lertxundi

Zuen arduragabekeriak **neure onetik ateratzen** nau! Karlos Linazasoro

Honek ere ez ote dit lagundu behar?"; amari ere segituan jaten zion burua Albertok, eta horrek **neure onetik ateratzen** ninduen. Juan Kruz Igerabide

Banoa, besteak ere badoazelako, aurrerantz mugituz, trantze antzekoan sartuta bezala, erabat **neure onetik aterata** banengo bezala. Mirentxu Larrañaga

Baina zure zalantzek **neure onetik ateratzen** naute. Patxi Zubizarreta

Bakardadea gogoko banuen ere, itxaronaldi alferrikakoak **neure onetik ateratzen** ninduen. Alberto Ladron Arana

Neure onetik ateratzen hasia, ustekabean sexua kukuka sentitu nuen. Patxi Zubizarreta

Bere samin-erakusaldiaren nabarmenak naik noski **neure onetik atera**. Juan Garzia

57 *neurritik atera*

"Iragankortasunari eta behin-behinekotasunari buruzko eztabaida **neurritik atera** da», azaldu zuen Cuevasek. Berria - Ekonomia

-Eta hau guztia ez da nire **neurritik ateratzeagatik** edota gora eta gora nire burua jasotzeagatik, zera alegia, gobernadore izateak zer-nolako aho-gozoa duen jakin nahi dudala, horixe. Patxi Ezkiaga

Bazekiat, hala ere, kartzelara sartu bezain laster "tratu txarrak" salatuko dituzuela, beti bezala, gauzak bere **neurritik aterata**. Rafa Egiguren

58 *nor bere onetik atera* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Nor bere onetik atera gabe esan behar dena esateko eta entzutea dagokiguna entzuteko entrenamenduak ez du parekorik bizitzan!. ETC-prentsa

59 *norbait bere onetik atera* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

UPNko zinegotziak erasoak bukatzen ez badira " **norbait bere onetik ateratzea** " lortuko dutela esan zuen. ETC-prentsa

Norbait bere onetik ateratzen denean, Xebek buruko azkurak kentzen dizkio. ETC-literatura, saiakera

Norbait bere onetik ateratzeko bezain ernegagarria? ETC-literatura, saiakera

60 *onik atera*

Hiru atentatutatik **onik ateratzea** lortu zuen Alexandro II.ak. Iban Zaldua

Hirian gelditzen dena ezpataz, goseak edo izurriz hilko da; babiloniarrengana igarotzen dena, ordea, bizirik eta **onik aterako**. Elizen arteko biblia

Hura izan zela bidaiako unerik larriena aitortu genuen hirurok, eta Abdellahri zor geniola **onik atera** izana. Bernardo Atxaga

Hondamendi batetik **onik atera** den pertsona bakarra zirudien komisariako itxarongelan. Joxean Agirre

Onik ateratzeko, inork ikusi gabe zelatatu behar duzu. Pako Aristi

Badakitelako zerbait gertatuz gero haiek **onik aterako** direla. Edurne Elizondo

Kontaiek egia osoa eta kito, Charlie, eta **onik aterako** haiz. Mirentxu Larrañaga

Neskaren kapritxoak harriturik samar utzi baninduen ere, **onik atera** nintzen azterketa misteriotsu hartatik. Patziku Perurena

Gertatutakoari hainbesterainoko garrantzia ez ematea zela hartatik **onik ateratzeko** modu bakarra. Anjel Lertxundi

Erditze arriskutik **onik ateratako** andreak. Askoren artean

Eta, nengoen kinka larritik **onik ateratzekotan**, horixe egin behar nuen, buru-belarri hausnartu. Alberto Ladron Arana

Nork bere burua sekula **onik aterako** ez den putzu batera botatzea. Iñaki Segurola

61 *paparra atera*

Gero, ukabilak estuturik, **paparra atera** eta drogerian sartu zen. Lopez de Arana

Aita eta ama gazte, biak zutik, eta erdian, ni amaren besoetan eta Sole aitarenean, Marisa bere panpinarekin eta Senen serio arraio, tente-tente, **paparra aterata**. Jon Maia

Ez dugu inolaz ere onartuko, PPren aurrean **paparra ateratzeko**, Euskal Herriaren aurkako errepresioa areagotzea edo euskal presoak sufriaraztea. Berria - Euskal Herria

62 *punta atera*

Haren ondoan jarri eta makila bat eskuetan hartuta, **punta ateratzen** hasi nintzaion. Jon Maia

Punta atera diozu arkatz beltzari. Sonia Gonzalez

-Zubi bati ere **punta atera** nahi -eten zion nekatuta Albertok. Joxemari Urteaga

63 *punta eta ertza atera* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Punta eta ertza ateratzen zion. ETC-prentsa

64 *sakea atera*

Sakea ateratzen du pilotari gurpil suntsigarri eta erantzun ezinezko bat eraginez, mahaitik hiru metro atzerago jartzen da, eta nik ematen ditudan kolpe guztiei erantzuten die lau urteko mutikoa baino trebeagoa ez banintz bezala. Oskar Arana

Alboko **sakea atera** eta bost bat minutura, ordea, guztiz aldatu ziren gauzak, orpoz sartu bainuen gola, airean inoizko saltoa eginik, sekulakoa. Joan Mari Irigoien

Sevillak alboko sakeak oso luze ateratzen dituenez, alboko marraren ondo-ondoan jartzen zen, **sakea ateratzen** zuenean oztopoa jartzeko. Berria - Kirola

Berez da hori goi mailako norgehiagoka, baina badu berezi egiten duen xehetasun bat: Patxi Zeberio aurrelaria izango da bere bikotean **sakea aterako** duena. Berria - Kirola

65 *sar-atera*

Pare-paretik iragan behar izaten dute **sar-ateran** ibiltzen diren guztiek. Aingeru Epaltza

Paco sei urterekin etxetik fuineta (eskapo) egiten hasi zen, auzoko sukaldeetan **sar-aterak** egiten zituen, joaten zen Mosenen beraren etxera. Pablo Sastre

Karlos III. Nobleak 1423an Iruñeko hirigune osoari "Privilegio de la Unión" eman zion arte, Navarreria, San Zernin burgoa, San Nikolas, eta San Miguel auzoak besterik ez zituen Iruñeak, beren lurpeko urtegi, dorre, harresi eta **sar aterako** ate handi banarekin. Patziku Perurena

Inondik **sar-aterarik** ez zuen txara baten bazterrean ikusirik bere burua, biriketako arnasa faltaz itotako ahots eten ilaun batez hitz egin zuen Norak. Anjel Lertxundi

Urtean zehar, zenbat bazkari, afari eta ekintza ez dute muntatzen familiakoek eta gazteek, itzalpetuak laguntzeko eta ikustera joiateko, hoin urrun, **sar-atera** baten esperantzan. Herria

66 *sar-ateraka* *adlag* sartu-ateraka.

Gure gibeleko etxeak argiak piztuak ditu, hogei bat urteko ikasleak **sar**-ateraka ari dira gelditu gabe. Aurelia Arkotxa

67 *sar-ateran* *(orobat **sar-aterean**)* *adlag* sartu-ateran, sar-ateraka.

Bertzerik ezinean, lau hilabete horietan Josuren ganberan **sar-aterean** ikusitako aurpegi ugarietariko bati lotzera saiatu nintzen hitz bakarreko boza. Aingeru Epaltza

Pare-paretik iragan behar izaten dute **sar-ateran** ibiltzen diren guztiek. Aingeru Epaltza

68 *sartu-ateraka* *adlag* sartzen eta ateratzen.

Remigio organista esku-soinu eta guzti gainean eseri, lagun taldekoa baitzuten, eta auzoan aurrera eta atzera ibili zuten, zarata batean, taberna guztietan **sartu-ateraka**, kalearen erdian dantzan. Juan Kruz Igerabide

69 *sartu-ateran* *(orobat **sartu-aterean**)* *adlag* sartzen eta ateratzen.

Erromako beren etxean ez zegoen Turinen bezala [...] **sartu-ateran** ibiltzen zen jenderik. Fernando Rey

Estropezu egiten dute sarritan, portaletik **sartu-aterean**, aterkiak gurutzatzen direnean. Alberto Barandiaren

70 *tentutik atera*

Eta ez nuen zirkinik egiten, hari finko begira, agerpen baten aurrean bezala neure **tentutik aterata**. Josu Zabaleta

71 *tiragaleak atera* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Picciolik logaleturik begi bat ireki zuen eta gero bestea eta **tiragaleak atera** zituen goizean katu nagiak egiten duen bezalaxe eta horrela ikusita urduritu ninduen. ETC-literatura, saiakera

Tiragaleak atera eta bizkarrak kraska egin zion. ETC-literatura, saiakera

Egongelara itzuli zenean, Txueka **tiragaleak ateratzen** ari zen. ETC-literatura, saiakera

72 *trapu zikinak eguzkitara atera* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Eta inork ez dituenez **trapu zikinak eguzkitara atera** nahi, ingelesak ematen duen neutraltasun faltsu horrekin estaltzen dugu maiz geure egoera linguistikoa. ETC-prentsa

Liburuan zehar lagunak maitasunez deskribatzen dira; oraindik ere, konbentzioak eta dekoroak eskatzen duen bezala, **trapu zikinak eguzkitara atera** gabe. ETC-zientzia, zuzenbidea

Denak susmagarri bilakaturik, modelo, diseinatzaile, laguntzaile eta abarren **trapu zikinak eguzkitara aterako** dira. ETC-entziklopedia

73 *txintik ere ez atera* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Argi zegoen hitz egin nahi zidala zutaz, barruan nahi hura zuela, nahiz eta kanpora **txintik ere ez atera**; bestela ez zituen paper haiek aterako. ETC-literatura, saiakera

74 *txintik ez atera* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Txintik ez ateratzea erabaki nuen, ordea. ETC-literatura, saiakera

Alde batera, izebaren itxidura uler nezakeen, aitaren urruntasuna, zutaz **txintik ez ateratzeko** elkarrekin duten hitzarmen sekretua. ETC-literatura, saiakera

Hobe duzue **txintik ez atera** gaur hemen gertatutakoaz. ETC-literatura, saiakera

75 *txirbilak atera*

Alta, **txirbilak atera** ondoren, noizbait etorri beharko du distira ateratzeko fereken aldiak. Iñaki Iñurrieta

Bikaina izan zen interpretazioa, begiak malkotan jartzerainokoa, eta amaieran eskuetatik **txirbilak atera** arte ekin genion txaloka. Xabier Mendiguren Elizegi

76 *zeure onetik atera*

Gehiegi berotzen bazara **zeure onetik ateratzen** zara, eta akabo, ezin duzu deus egin. Berria - Kirola

Eskema nagusi orohartzailerik ezean, desoreka hurbilago dagoke: edozerk kordoka zaitzake, **zeure onetik atera**, erro sendorik ezean. Iñaki Iñurrieta

77 *zorrak atera* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Jarrera hau" saldukeriatzat" jo zuten agintari sozialistek, eta François Hollande idazkari nagusiak testuak aurrera egitearen erantzuletzat jo zuen: "**Zorrak atera** beharko dizkiogu". ETC-prentsa

78 *zukua atera*

Osasun ona zuen; garai batean, **zukua ateratzen** zion bizitzari; berrogeita hamalau urte besterik ez zuen, artean. Xabier Olarra

Hala ere, bazirudien tabernaria nekatu egin zela Miren Karmelez, edo Miren Karmeleri ez zitzaiola dagoeneko interesatzen, bere jokaldi politikorako **zukua atera** zionez gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Hain zuzen ere, liburuak eta bidaiak dituzu bizitzari **zukua ateratzeko** modu bakar, mende erdia bete duzunetik. Javi Cillero

Nahi baino gutxiago ikusten genuen elkar, baina uneei **zukua ateratzen** tematzen zen Jabi. Lander Garro

Goian, galleta batzuk eta melokotoi-**zukua atera** zizkigun, eta egongelako sofan eseri ginen. Juan Kruz Igerabide

Euskalkiek daukaten **zukua ateratzen** ez asmatzea. Koldo Zuazo

Oso garrantzitsua da gogoan izatea urte asko utzi zutela igarotzen beren jukutria sonatuari **zukua ateratzen** hasi arte; azkenean, haren gainean eraikiko dute bere doktrina nazkagarriaren etxe kulunkaria. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nolanahi ere, goizean goiz amarenean igandeko egunkaria irakurriz frogatu ahal izan nuenez, nire deiari **zukua ateratzen** jakin zuen. Aingeru Epaltza

"Hitzei **zukua ateratzen** asmatu behar da", aktoreen arabera. Berria - Kultura

Bestela ere egin zitezkeen gauzak, baina kontuak ateratzen hasita, hauteskunde molde honi bestelako **zukua ateratzen** zaila zegoela nabarmena da. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 25 aldiz agertzen direnak)

ahotik atera (32); **alde atera** (35); **aldea atera** (125); **arantza atera** (27); **argazkia atera** (46); **argazkiak atera** (42); **arrastaka atera** (27); **artetik atera** (28); **asko atera** (39); **atera ahal** (144); **atera ahal izan** (33); **atera arte** (35); **atera aurretik** (40); **atera baino** (39); **atera baino lehen** (28); **atera behar** (529); **atera beharko** (100); **atera beharra** (39); **atera beharrean** (40); **atera berri** (65); **atera berria** (72); **atera berriak** (29); **atera bezain** (43); **atera bezain laster** (28); **atera bide** (38); **atera da** (367); **atera dadin** (29); **atera daiteke** (53); **atera dio** (28); **atera dira** (220); **atera diren** (56); **atera ditu** (81); **atera dituzte** (75); **atera du** (272); **atera duen** (56); **atera duk** (35); **atera dut** (42); **atera dute** (128); **atera duten** (26); **atera duzu** (35); **atera egin** (141); **atera egin zen** (31); **atera egiten** (38); **atera eta gero** (34); **atera ez** (90); **atera ezinik** (43); **atera gabe** (288); **atera gara** (33); **atera genuen** (33); **atera ginen** (105); **atera hurbildu** (31); **atera iritsi** (34); **atera izan** (39); **atera izana** (26); **atera joan** (35); **atera kontuak** (94); **atera nahi** (281); **atera nahian** (50); **atera naiz** (42); **atera nintzenean** (28); **atera nuen** (175); **atera ohi** (33); **atera omen** (36); **atera ondoren** (68); **atera orduko** (41); **atera ote** (33); **atera zaio** (59); **atera zait** (35); **atera zela** (58); **atera zen** (1413); **atera zen eta** (68); **atera zenean** (86); **atera zien** (29); **atera zion** (178); **atera zioten** (38); **atera ziren** (636); **atera zirenean** (25); **aurrera atera** (190); **aurrera atera ahal** (27); **autotik atera** (42); **bakarrik atera** (39); **bat atera** (958); **bere onetik atera** (51); **berehala atera** (34); **berriro atera** (25); **bertatik atera** (29); **bezala atera** (47); **bidera atera** (55); **bidetik atera** (52); **bila atera** (32); **bizirik atera** (136); **burua atera** (49); **dirua atera** (30); **egitera atera** (27); **eguzkia atera** (36); **errepidetik atera** (66); **espetxetik atera** (48); **etekina atera** (55); **etxetik atera** (132); **ez atera** (29); **ezin atera** (26); **ezpata atera** (43); **gaizki atera** (46); **garaile atera** (62); **gehiago atera** (51); **gelatik atera** (56); **gorria atera** (27); **guztia atera** (28); **handia atera** (36); **handik atera** (116); **hartatik atera** (39); **hau atera** (38); **hiritik atera** (31); **hitzik atera** (46); **hori atera** (39); **horretatik atera** (27); **hortik atera** (88); **hortik atera kontuak** (30); **irabazle atera** (25); **kalera atera** (198); **kanpora atera** (196); **karrikara atera** (28); **kartzelatik atera** (56); **kontuak atera** (36); **korrika atera** (26); **labana atera** (25); **lagun atera** (25); **lehen atera** (47); **makila magikoa atera** (33); **nagiak atera** (32); **nola atera** (70); **nondik atera** (179); **ondo atera** (113); **ondorioak atera** (37); **onetik atera** (71); **ongi atera** (64); **onik atera** (160); **pistola atera** (40); **sakelatik atera** (31); **sartu eta atera** (36); **segundoko aldea atera** (68); **suhiltzaileek atera** (35); **txintik atera** (69); **txintik atera gabe** (37); **uretatik atera** (29); **xapeldun atera** (41); **zerbait atera** (32); **zorrotik atera** (32); **zulotik atera** (37)

aterako da (253); **aterako dela** (49); **aterako den** (58); **aterako dira** (130); **aterako direla** (28); **aterako ditu** (29); **aterako dituzte** (33); **aterako du** (54); **aterako dute** (28); **aterako gara** (31); **aterako naiz** (29); **aterako ote** (25); **aterako zela** (41); **aterako zen** (47); **aterako zuen** (38); **aurrera aterako** (60); **bat aterako** (66); **bizirik aterako** (37);

noiz aterako (30); **nola aterako** (29); **nondik aterako** (29); **ondo aterako** (36); **ongi aterako** (31); **onik aterako** (59); **zer aterako** (27)

aldea aterata (29); **bere onetik aterata** (84); **onetik aterata** (104)

ateratako argazkiak (25)

ateratzea erabaki (33); **ateratzea lortu** (69); **aurrera ateratzea** (74); **ez ateratzea** (30)

---

aterabide *iz irud* ateratzeko bidea.

Sasoi latz haietatik onik irten nahi bazuen, beste **aterabide** bat bilatu beharra zeukan. Patxi Zubizarreta

Bi **aterabide** gelditzen zitzaizkidan beraz, edo etxera itzuli edo hotelera joan. Daniel Landart

Estatu-nazioaren problematikari **aterabide** bat aurkitu arte menturaz. Piarres Xarriton

XX. mendean ez dugu jakin herriaren odolustea geldiarazten, ez **aterabide** berriak asmatzen. Piarres Xarriton

"Turismoa **aterabide** ekonomiko bat dea Eskual Herriarentzat? Menane Oxandabaratz

Zabor-itsaso bat ni irentsi beharrean zegoen eta, horrela gerta ez zedin, olatu ilunetan argi-une bat bilatzea nuen **aterabide** bakarra. Aingeru Epaltza

Haren arazoentzat **aterabide** egokiena zen, berak eta haurrak ez zuten deusen eskasiarik ukanen. Elena Touyarou

Horra zergatik otoizten dudan Zure Goitasuna, zure zuhurtzia paregabeak, Izpiritu Sainduaren argiak argiturik, naizen hobengabearentzat asmatuko duen **aterabidea** aurki dezan. Piarres Xarriton

Hortaz, bada, iduri du guk geuk aurkitu beharko ditugula **aterabideak**, besteren buztanarekin ez baitira euliak kentzen ahal. Pello Salaburu

Terrorismoa, ekintzez ez baldin bada, hitzez bederen babesten duen jendartearen baitan pentsamendu bortitza hazten da eguneroko urratsen zutabe: azken fineko **aterabide** eta, derragun, abertzale jator izatearen zigilu. Itxaro Borda

Urrats bat aurrera egin zuen, baina atzera gelditu zen, **aterabiderik** topatu ezinik. Patxi Zubizarreta

Eta, horrela, kontuan izanik ezen gizonak berezkoak dituela muga horiek, haien gainean eraiki behar izan dut eraiki asmo izan dudan guztia, bertze **aterabiderik** ezean. Joan Mari Irigoien

Barne kolonialismoa zen eta ez zegoen **aterabiderik**. Itxaro Borda

Orain ez dut **aterabiderik**. Elena Touyarou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdien arteko aterabide (3); **aterabide bakarra da** (3); **aterabide baketsua** (3); **aterabide bat aurkitu** (6); **aterabide bat bilatzeko** (3); **aterabide baten bila** (4); **aterabide egoki** (3); **aterabide gisa** (3); **aterabide hoberena** (4); **aterabide hori** (3); **aterabide integratzaileak** (4); **aterabide on** (3); **aterabide politiko** (9); **aterabide politikoa** (5); **da aterabide bakarra** (3); **dela aterabide** (3); **du aterabide** (5); **ez da aterabide** (3); **gatazkari aterabide** (5); **honi aterabide** (3); **zein aterabide** (4); **zer aterabide** (5)

arazoari aterabidea (4); **aterabidea atzematea** (4); **aterabidea atzemateko** (4); **aterabidea aurkitzeko** (3); **aterabidea bilatzeko** (4); **aterabidea bilatzen** (3); **aterabidea eman** (4); **aterabidea ematea** (5); **aterabidea emateko** (8); **aterabidea ez da** (6); **aterabidea izan** (3); **baina aterabidea** (4); **behin betiko aterabidea** (3); **da aterabidea** (4); **duen aterabidea** (3); **egoerari aterabidea** (4); **horri aterabidea** (3); **politikoari aterabidea** (3)

aterabideak aurkitzea (3); **aterabideak aurkitzeko** (3)

aterabideren bat (8)

aterabiderik ikusten (3); **aterabiderik onena** (3); **bertze aterabiderik ez** (3); **beste aterabiderik ez** (5); **ez dago aterabiderik** (3)

---

ateragailu *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* zerbait nonbaitetik ateratzeko erabiltzen den tresna.

Kayk builan hitz egin beharra zeukan, Gavinek zerbait entzungo bazion; izan ere, baxuaren bibrazioa, ontzi-estalkien zarata eta ke **ateragailuaren** furrustada ez baitziren nolanahikoak. ETC-literatura, saiakera

Lehenbiziko makinaren behereneko zilindroak aurrerantz luzatu du **ateragailua** Sllt lehen egunkari sorta zortzitan tolestuta bultzatzeko. ETC-literatura, saiakera

Lan arriskutsuetan aritzen diren hainbat makina ere, esaterako tripulaziorik gabeko ibilgailuak, minen **ateragailuak** edo hondakin toxikoen garbigailuak, robotzat har ditzakegu. ETC-prentsa

Eztia ontzeko 100 kiloko kapazidadea duen ontzia eta hiru kuadroko ezti **ateragailu** unibertsala saltzen dira, denak material herdolgaitzez eginak. ETC-prentsa

Azkenik, prentsa igotzerakoan, **ateragailuak** xafla matrizetik ateratzen du. ETC-entziklopedia

---

aterakin *(corpusean ez dago; ETCn **50** agerraldi; orobat **estraktu** ETCn **132** agerraldi) iz* zuku edo kideko bat konzentratzean lortzen den produktoa. ik **estraktu**.

Gizarte bizitzako mila eskakizun partikularrei obeditzetik geureganatu ditugun mila aztura bereziren **aterakin** kontzentratua, kintesentzia. ETC-literatura, saiakera

Afrikaren mendebaldean, azken horren hur kafeinadunak murtxikatzen zituzten, narkotiko gisa, CocaCola Companyk lehenbizi estatubatuarrak eta gero mundu osoa hasieran haren **aterakinekin** zerikusia zuen edari bat edatera erakarri baino askoz lehenago. ETC-literatura, saiakera

Pedrotegik berrogeita hamar teknika ezberdin erabiltzen ei zituen 30 platertxoz osatutako dastaketa-menu baterako: hutseango egosteak, hauts lehorra, hauts nitroa, gelatinak, obulatu deshidratatuak, gozogaintzeak, merenge faltsuak, **aterakinen** teknikak, aireak... ETC-literatura, saiakera

Eta bat-batean, gau batean, horrelako zerbait egin zezakeen arrastorik bat ere ez zegoela, ziegan urkatu zen, eta sinetsidazu, nahikoa lan kostatu omen zitzaion, gelatxo hartan ez baitago handik zintzilikatzeko inolako **aterakin** alturik. ETC-literatura, saiakera

Zer da immunoterapia? Gaixo bati alergeno baten **aterakina** azalpetik edo mihipetik ematea, alergeno erantzule horrek aurretik eragindako sintomei aurre egiteko. ETC-prentsa

Horretarako, azaleko probak egiten dira hainbat gai susmagarriren estraktu edo **aterakinak** erabiliz, azalean eskarifikazioak eginez. ETC-prentsa

Hango ardoak beltzak eta gorriak izaten dira, graduazio eta **aterakin** gehiagokoak. ETC-prentsa

Hepatitisaren birusari aurre egin omen diote ahuakatearen **aterakinarekin**. ETC-prentsa

- Azukre zuria: lehen **aterakinen** produktu zuria (sakarosa: % 99,7). ETC-zientzia, zuzenbidea

Haren hitzaldietako **aterakin** moduan, hona hemen zenbait ideia iradokitzaile: Alemaniako batasunak -konponbidea izan bazen- Suitza eta Austria bazterrean utzi zituen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beldarrak ilunak dira jaiotzen direnean, eta arantza-itxurako **aterakinak** izaten dituzte. ETC-entziklopedia

Aterakin lehorrean %50a koipea da eta azken produktuan %40a. ETC-entziklopedia

Gehigarri dietetikoen adibide batzuk bitaminak, mineralak, belarrak (belar bakarra edo hainbat belar nahastea), beste landare-produktu batzuk, aminoazidoak eta elikagaien osagaiak dira, hala nola entzimak eta guruin- **aterakinak**. ETC-entziklopedia

Bere alkimiaren inguruko testuetatik ezagunena "Kristau filosofo anonimo baten **aterakinak**" da, "Maria eta Arosen arteko elkarrizketa" izenez ere ezagutzen da. ETC-entziklopedia

---

aterakor *(corpusean ez dago; ETCn **217** agerraldi) izond* ateratzeko joera duena.

Begiak beren arro sakonetatik **aterakor** sentitzen ditut, tinpanoetako presioek azkura asegaitzetan samintzen zaizkidala; nire besoek pisu are nabarmenagoa dute, txindurritutako sorbalden gainean; orkatil-lotailuak urratzen doaz, ziatika ukitu zorrotza bidaide. ETC-literatura, saiakera

(13.8) Ezaugarri nagusien artean, honako hau nabarmendu daiteke: nukleozalearen izaerarekiko, substratuaren egiturarekiko, talde **aterakorrarekiko** eta disolbatzailearekiko sentikortasuna. ETC-zientzia, zuzenbidea

Talde **aterakorrak** : berdez ETC-zientzia, zuzenbidea

---

ateraldi *(ETCn **125.499** agerraldi)* **1** *iz* zerbait edo norbait ateratzen den aldietako bakoitza.

Ea noiz egiten dugun **ateraldi** bat elkarrekin. Iñaki Zabaleta

Gero gorabehera batzuk ere izan zituen, inoiz eguerdian ateratzen zelako, beste inoiz gauean ere bai, eta hala gaueko **ateraldi** hori erretreta bihurtu zen. Askoren artean

Ateraldietan guk, jantzirik iltzeekiko bota handi gogor eta beruna bezain astunak, jantzirik artilezko galtzerdiak eta buru-berokia, jarririk kopetan hormarako betaurrekoak [...] Fernando Rey

Alde batetik, oso pozik nengoen etxearen egoerarekin eta asteburuetako **ateraldiekin** . Iban Zaldua

Larrialdietako kamioikoak ziren, lehen **ateraldikoak** . Jon Alonso

Agorrilaren hamabosteko zubian, bildumaren egiteko Aitzinako lokaletan juntatu zirenean, Bozek mutikoen aireztatzeko **ateraldia** proposatu zuen: Itxaro Borda

Martxoko gau fresko hartako **ateraldia** ez zuen lehenbizikoa. Eneko Bidegain

Batzuetan berrogeita hamar bat egoten dira etxoletan, Hobbitongo bidearen gainaldean; baina **ateraldiak** egiten dituzte, lapurtzera edo, beraiek diotenez,"biltzera". Agustin Otsoa

Arribatu eta biharamunean berean egin genuen **ateraldia** , Boussemghoum herriaren gaineko mendietan, oroit naiz arras xuxen. Piarres Aintziart

Iazko **ateraldiak** ikusteko guti izan zuen bederatzi urte lehenagokoarekin. Aingeru Epaltza

Tentsio horrek orduak luzatzen dizkizu... Batzuetan, goizeko **ateraldirako** zazpi eta erdietan jiten ziren eta arratsaldekoarentzat bostak eta erdietan... bereziki neguan, goizetan iguzkia ez zelarik oraino jaikia eta arratsaldeetan jadanik sartua zelarik. Filipe Bidart

2 *iz* ustekabeko esaldi edo erantzuna, gehienetan bitxia edo barregarria.

Beti beltzez jantzita ibiltzen bazen ere, tia Maria oso umore alaikoa zen, beti **ateraldiren** bat edo errima bat ezpainetan. Jon Maia

Barre egiten du bere **ateraldiarekin** . Oskar Arana

Mikelen **ateraldiarekin** barre zantzotan lehertu ziren denak. Unai Iturriaga

Baina Reb Zekelek ez zuen hiltzeko presarik; **ateraldi** eta bertso isuri ezin agortuzkoaz alaitzen zituen oraindik ere ezkontzak, gazte denboretan bezalaxe. Koro Navarro

Zenbat aldiz ez ditut aditu, honako honelako **ateraldiak** , ixilaldi llabur bateko porrot eder baten aurretik edo ondotik. Patziku Perurena

Hori **ateraldia** , Hamlet. Juan Garzia

Badirudi barrea sortzeko **ateraldia** dela, Buñuelen film batetik hartua, baina egiatan negar egiteko moduko zinezko gertaera baizik ez da. Pello Salaburu

Ondo kalkulatutako anbiguotasunak sorpresarako atea zabaltzen du, eta ironiarako, kritikarako, umorerako, nahasketarako, **ateraldietarako** . Iñaki Arranz

Xabik barre egin du nire **ateraldiaz** , berea zuritzeko balio dio eta. Xabier Etxabe

-Zertarako behar ditut, baina? -harritu zitzaion Andreas, agurearen **ateraldiarekin** adina, aspaldian balioa galdua zuten sos zahar haiek ikusteaz harriturik. Anjel Lertxundi

Ttipik, botila berreskuratuta, hurrupada luze batez ospatu zuen bere **ateraldia** . Aingeru Epaltza

Eta, nola Mattinek eta biok laket baikenituen apezaren **ateraldiak** , hala, korapiloak eta trabak berez sortzen ez zirenean, edo berak sortzen ez, guk asmatzen genituen, ikasgai astun haiek arinago gerta zekizkigun amoreakatik. Joan Mari Irigoien

Baziren albisteak, bazen berri bitxirik ere tartean, bazen algararik, bai albisteen ezpal ezberdinik eta bertsolari **ateraldirik** , horoskopoa bezalaxe buruhauste nahi zukeen asmakizunik... eta noski, hor egoki zetorren eguraldiaren tartea ere. Pello Zabala

Denek egin zuten barre Txantoi txikiaren **ateraldi** eta imintzioekin, baita Orrondok ere. Pedro Alberdi

Txunditurik zeuden denak (ez auzokoak baino gutxiago **ateraldiaren** egilea), eta Delacour andereñoa, zein ere pertsona sendokote jator bat baitzen, irribarre zabala egiten hasi zen. Irene Aldasoro

Olatzek irribarre egin zuen Martaren **ateraldiaren** aurrean. Harkaitz Cano

Zuzendariari esan nion ezen, kolorea salbu, gibelen antza hartzen niela, eta hark txalotu egin zidan **ateraldia** : halaxe zetorren, hitz horiexekin, berniziologiazko liburuetan! Juan Garzia

Barre algara are handiagoak egin zituzten Tabiraren **ateraldiarekin** , baina haietan urduritasun eta pena nabariak ziren, agur esan beharrak eraginda. Joanes Urkixo

Zergatik sorpresa? -nik harridura plantak eginez **ateraldi** horregatik. Joxemari Iturralde

Irakasleentzat atsegingarri eta jostagarriak ziren nire erantzun burutsuak, nire **ateraldiak** , nire aurpegi irribarretsua eta nire ikuspegi kritikoa. Josu Zabaleta

Irribarre egin zuen Perrettek, "segituan derrepente" esapideari buruz arestian izan zuen **ateraldiaz** oroiturik. Jon Muñoz

Azkenerako, Geraldek buruz ere bazekizkien haren **ateraldiak** , biek elkar hartu eta aldi berean ahoskatu ahal izateko moduan jakin ere. Mirentxu Larrañaga

Barre egin dute hirurek, aitaren **ateraldiagatik** . Paddy Rekalde

Giovanni Mazoniri ere barrirudia egin zioten ezpainek, Vittorioren **ateraldiak** grazia handirik egin ez bazion ere. Joxemari Urteaga

Ez dugu jakiten puntuari lehenengotik datorren **ateraldiarekin** erantzun edo, badaezbada, azkenerako gorde. Andoni Egaña

Arrebaren **ateraldi** hark zeharo desbideratu zuen denen arreta nire bidaiatik. Jon Muñoz

Lagunen berriketa atsegina bide zitzaion Manueli, zeren barre egiten baitzuen etengabe haien **ateraldiekin** . Pedro Alberdi

-Ez duzue dantza handirik eman, hori izan zen Mattinen lehen **ateraldia** . Janbattitt Dirassar

Ez buru eta ez hanka ez duten **ateraldiak** , guztiak ere. Juan Garzia

-Gaizkile ederra, horrelako **ateraldiak** dituena! -hots egin zuen Püchl andreak, zeharo suminduta. Anton Garikano

Ohartzen hasita, espantaturik ohartua zen neskatikoa ez zitzaiela beti hotz izaten begirada eta **ateraldi** horiei. Aingeru Epaltza

3 (izenondoekin)

Isiltasuna Asier beti baikorraren **ateraldi** irrigarriren batek baizik ez du urratzen. Aingeru Epaltza

Baina ahoko gailu beltz distiratsu hark aztoratu egiten zuen jendea eta atzera eginarazten zien kikilduta; ez zitzaien **ateraldi** burutsurik otutzen aparailu hartatik esateko, ezpada: "Hozten ari du kanpoaldean", edota, "Ez daukazu itxura txarrik! " oihukatzea baino. Mirentxu Larrañaga

"Beharbada esnatu eta eguna eguzkitan eta txoriak kantuan aurkituko dituzu", esan zuen errukiz Ramsay andreak, semearen ilea laztanduz, zeren senarrak, **ateraldi** zorrotz harekin, alegia ez zuela ona egingo, itxaropenak zapuztu baitzizkion Jamesi, ondo jabetzen zen bera. Anton Garikano

Ateraldi horrek, espero zitekeenez, suntsitu egin du gure elkarrizketa gero eta motelagoa. Monika Etxebarria

Racheli esan nion egunak zenbaturik neuzkala, baina bere mutur-sartze eta aholkuari beroaldian emandako ihardespena baizik ez zen izan, ahoberokeriazko **ateraldi** hutsa. Oskar Arana

Peterrek badu aldian behin **ateraldi** onen bat edo beste. Josu Zabaleta

Zirrara horren arrazoiak desberdinak izan daitezke: arrazoibide paregabea, **ateraldi** umoretsua, sakontasuna... J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Morfinaren eraginpean lasai, umoretsu dago, barrea eragiten die ingurukoei bere **ateraldi** xelebreekin, zoriontsu ematen du ez bide da ohartzen gertatzen ari denaz. Imanol Zurutuza

Barberia, makina bat urtetako egutegiaren orritxoak betetzeko adina kontu, pasadizo eta **ateraldi** bizkorren gordelekua, iazko udazken horretan bertan itxi zuten. Pako Aristi

Zeinen **ateraldi** argiak dituen batzuetan! Juan Garzia

Liutprandok Nizeforo enperadore eta haren ministroekin izandako elkarrizketak bi aldeetako **ateraldi** iraingarriek bizitu zituzten. Iñaki Mendiguren

Ausiki bat ogi kaskoari, haur denborako orroitzapena, ene ibiltokirako **ateraldi** labur hori gogoan,burua kanpoko irudiz betea. Filipe Bidart

Ateraldi antiklerikalak gustatzen zitzaizkion gehien. Anjel Lertxundi

Nik uste emazte batentzat amets ederrena hori zen, noizbait haur baten ukaitea, horra non enekin hain goxoki egona zen Elena horrek kalitua bezala uzten ninduen bere **ateraldi** ezin sinetsizkoekin! Janbattitt Dirassar

Egiaz, ez dakit nola ezin izan nion **ateraldi** errazegi hari mihian eutsi. Ramon Saizarbitoria

Aforismoak **ateraldi** dibertigarriak dira Petanentzat. Berria - Kultura

Edo, zabalago esanda, zer jarrera hartu behar nuke horrelako erreakzioen aurrean, horrelako **ateraldi** sasi-erlijiosoekin gertatzen naizenean? Bernardo Atxaga

Izebak, zeukan bihotz guziz prestatu zion hamaiketakoa, baitzekien ez zela mendiko **ateraldi** arrunt bat bezala eta zer gertatuko ote zitzaion beldurrez ikaran baitzegoen. Eneko Bidegain

Ez zen **ateraldi** burutsu bat izan, kexa bat baizik. Bernardo Atxaga

Lehengusuak etengabe egiten zuen barre **ateraldi** agortezin haiekin, eta dibertitzen ginen iskanbila sortuz lizunkeriekin eta bizikletan zebiltzan emakumeen izterren artean egindako begiratuekin eta ez dakit beste zerekin. Pello Lizarralde

Oinarrizko arautzat zeukan, Aita Sainduak Erroman behar dituela epaitu apezpikuak eta bazerabiltzan **ateraldi** bipil eta ausart batzuek, lotsagabearen mugak gaindituz tarteka. Piarres Xarriton

Ateraldi hori egin eta berriz joaiten da bere otoitzari Ermita, bisaia bi eskuetan gordea. Michel Oronoz

Azkenik, **ateraldi** gogaikarrien bat ere egin behar izaten zigun amaz -. Mirentxu Larrañaga

Atsegin zaie Melanie-Gloria; barretxoak egiten dituzte **ateraldi** gordinekin, eta barre algaraka hasten dira pertsonaiak iseka eta irainka hasten direnean beren artean. Oskar Arana

Eta zahartzea zer ote den, hori esatean burura berriro lehengo **ateraldi** zoroak harrapatu zidan. Edorta Jimenez

Ez zen egia: bizkaitarraren **ateraldi** xaloek ukendu lasaigarri baten antzera egiten zuten nire arimako tristezia eta larriminaren kontra. Alberto Ladron Arana

Ordainean, kamera ezkutu batekin ibili zen denbora guztian zehar, den-dena grabatzen: erregearen mozkorraldiak, printzearen txiste arrazistak, erreginaren **ateraldi** zelebreak, presidentearen eta gainontzeko dignatarioen duintasun-eza, gortearen inguruan burutzen ziren hamaika negozio ustelen eragiketak. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ateraldi bat (40); **ateraldi bat antolatzen** (9); **ateraldi bat egin** (3); **ateraldi bat eginen** (4); **ateraldi batekin** (3); **ateraldi baten** (3); **ateraldi batez** (3); **ateraldi batzu** (9); **ateraldi egin** (6); **ateraldi frango** (3); **ateraldi harekin** (4); **ateraldi hark** (4); **ateraldi hau** (8); **ateraldi hori** (10); **ateraldi horrek** (3); **ateraldi hura** (7); **ateraldi xelebre** (3); **ateraldi zorrotz** (3); **bere ateraldi** (6); **beste ateraldi** (7); **bi ateraldi** (5); **elkarte hunek ateraldi** (3); **elkarteak ateraldi bat** (5); **ene ateraldi** (3); **haren ateraldi** (4); **hiru ateraldi egin** (4); **hunek ateraldi bat** (3)

ateraldia eginen (3); **ateraldia izan** (4); **azken ateraldia** (3); **bere ateraldia** (7); **beren ateraldia** (4); **bigarren ateraldia** (3); **lehen ateraldia** (11); **udazkeneko ateraldia** (4)

ateraldiak grazia (3); **ateraldiak harritu** (3); **haren ateraldiak** (4); **horrelako ateraldiak** (3)

bere ateraldiarekin (3)

---

aterarazi, ateraraz, aterarazten du *ad* ateratzera behartu.

Ardien presentzia xumeak kontuz ibiltzekoa nintzelako ideia burutik **aterarazi** zidan. Itxaro Borda

Emaztearen negar-zotinek **aterarazi** dute berriz ere bere pentsamenduetatik. Jokin Muñoz

Horregatik, senideek itsasaldera **aterarazi** zuten Paulo berehala; Timoteo eta Silas Berean gelditu ziren. Elizen arteko biblia

Oker hartatik **aterarazi** nahiko nuen, honela adieraziz: "Ados, ergel eta baldres jokatu dut, baina sinets iezadazu arren: ez nau gizabide on, ausart eta zozo batek baino gidatu honetan guztian. Joxan Elosegi

Egun horretan bigarren aldiz, barruan zegoen jendea **aterarazi** eta bi minutuz itxi egin zuten geltokia. Berria - Harian

Aurreko gauean egin zuen aitortzaz oroitzeak min handia ematen zion; aferaren xehetasun zentzugabeenak ere **aterarazi** zizkion apaizak, eta hainbesteraino handitu zion azkenerako bekatua, ezen ia eskerdun ere bai baitzegoen konponbiderako zirrikitu baten aukera eman zitzaionean. Irene Aldasoro

Argiro ikusi omen zuen nire amari dirua emanda otsoa **ateraraziko** genuela basotik. Joxan Elosegi

Eta, hiriko plazarik jendetsuenera horrela **aterarazi** eta emakumeen, gizonen eta haurren begien aurrean jarriko balute, axolagabeki kulunkatuko luke oin iletsua eta burlaizez irribarre egingo luke, orain bezalaxe. Jose Morales

Euskal Jai zaharraren barruan zeuden azken lagunak **aterarazi** ondoren, gaztetxea eraisteari ekin zioten makinek atzo, San Agustin kaletik. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

aldiz aterarazi (3); **arrastaka aterarazi** (2); **aterarazi behar** (7); **aterarazi behar izan** (5); **aterarazi beharrez** (2); **aterarazi dituzte** (4); **aterarazi du** (3); **aterarazi egin** (2); **aterarazi eta** (13); **aterarazi izana** (2); **aterarazi nahi** (4); **aterarazi ninduen** (5); **aterarazi nuen** (3); **aterarazi nuen gudura** (2); **aterarazi ondoren** (2); **aterarazi zien** (2); **aterarazi zion** (4); **aterarazi zituen** (9); **aterarazi zituztela** (2); **aterarazi zituzten** (11); **aterarazi zizkion** (4); **aterarazi zuela** (2); **aterarazi zuen** (18); **aterarazi zuten** (3); **bat aterarazi** (2); **egia aterarazi** (2); **egunkarian aterarazi** (2); **etxeetatik aterarazi** (4); **etxetik aterarazi** (5); **etxetik aterarazi dituzte** (2); **gudaroste ahaltsua aterarazi** (2); **guztiak aterarazi** (3); **hartatik aterarazi** (2); **hilobitik aterarazi** (2); **jendea aterarazi** (4); **kanpora aterarazi** (5);¡ ohetik aterarazi (2); **pertsona aterarazi** (2); **zegoen jendea aterarazi** (2); **zergatik aterarazi** (2)

aterarazi dugu (2)

---

ateratzaile 1 *iz* adierazten dena ateratzen duena.

Kautxo-**ateratzailea** zen, seringueiroa; lan gogorra, inondik inora, egun osoan heveei izerdia ateratzen ibiltzea. Jon Muñoz

Chico Mendes kautxu "zain-**ateratzailea**" nola hil zuten kontatzen zuen, sindikatu bat sortu zuelako lur-jabeek eta haien soldatapeko hiltzaile-taldeek egindako sarraski eta belzkeria guztien kontra borrokatzeko. Jon Muñoz

Erretato **ateratzaile** baten aurrean ipinten denak, senez edo, bat-batean itxura arrotz batera eramaten du bere karantza, perfekzioz apaindu eta osatu nahiz bezala; eta gero erretatoa ikustean, keinu arrotz bat sumatuko du bere aurpegian. Patziku Perurena

Adibidez foto **ateratzaile** talde bat bazen, burua Xavier de Bourbon Parme printzea zuena. Marzel Etxehandi

Lanbro itxiak gogora ekarri zion garai bateko Londres ospetsua, smogek jendea etxean bilduarazi eta tripa-**ateratzaile** eta gisako gaizkileak kaleratzen ziren garaikoa. Migel Angel Mintegi

2 ***tripa-ateratzaile*** tripak ateratzen dituen pertsona.

Lanbro itxiak gogora ekarri zion garai bateko Londres ospetsua, smogek jendea etxean bilduarazi eta **tripa-ateratzaile** eta gisako gaizkileak kaleratzen ziren garaikoa. Migel Angel Mintegi

Julen abailduta dago, eta polizia etxean izugarrizko aitorpena egin balu bezala dago; "Bostongo **tripa ateratzailea** naiz", esan izan balu bezala. Luis Elberdin

---

ateratze 1 *iz* (zerbait) dagoen tokitik at ezartzea, barnetik kanpora eramatea.

Utzi balidate, sikeran, euren sartze, **ateratze**, miazkatze eta zurrupatze saioei begira egoten, hartan inspiratuta kanpaia jo nezan gustura! Jon Arretxe

Goizeroko aharrausi nagi eta urratzailea da, hezurrak krask eginarazten dituen nagiak **ateratze** bukaezina, egun bat gehiago, egun bat gutxiago. Jon Alonso

Askoz beranduagora arte, eguzkia atera eta eraiki den arte, ez dira hanka-besoak askatuko eta ahotsak epelduko, goizeroko aharrausi nagi eta urratzailea da, hezurrak krask eginarazten dituen nagiak **ateratze** bukaezina, egun bat gehiago, egun bat gutxiago. Jon Alonso

-Behazun beltza igan zaio bururat, eta odol-**ateratze** batzuk egin behar zaizkio, ea behazun beltza burutik jaisten zaion, eta arimatik tristura hori kentzen. Joan Mari Irigoien

Gero berrogeita hamar dolar sartuko zituen, eta diru-**ateratze** faltsuaren txartelak bere kutxaren balantzea ongi koadratuko zuen. Xabier Olarra

Bestetzuetan, hitzekin jolas egitea gustatu izan zaigunez, guk geuk endredatzen ditugu bazterrak hitzei etekin bitxiak **ateratze** aldera. Anjel Lertxundi

2 ***diru ateratze***

Gutxienez erdiek bazuten lapitzez egindako arrastoren bat, denak **diru-ateratzeen** seinale, bakar bat ere ez diru-sartzeenik. Xabier Olarra

Txartelarekin bat dator, eta ez dago zifra bat bakarra ere lehenagoko sarreren datuekin konparatzeko: akabo urte batzuk lehenagotik datozen **diru-ateratzeak**, sarrerak, eta abar. Xabier Olarra

3 *informazioa ateratze*

Ikusmen-aparatuaren eginkizuna ez da, haren iritzian, ez inputak "deskodetzea", ez pertzeptuak "eratzea", **informazioa ateratzea** baizik. Josu Zabaleta

Antza, Guantanamoko (Kuba) funtzionarioek esan zuten, 2002ko amaieran, tortura erabili gabe ez zutela atxilotuei **informazioa ateratzea** lortu eta haien kexuen eraginez eskatu zuen aholkua Pentagonoak. Berria - Mundua

Deskribaturiko praktiken helburua atxiloturikoei **informazioa ateratzea** da, hainbat tortura metodo erabilita. Berria - Mundua

4 ***kortxo-ateratzeko*** *iz* kortxo-kentzekoa.

Tiraderan, lata-, poto-, ontzi-irekitzekoak, tapoi-kentzekoa, **kortxo** -ateratzekoa eta antzeko beste zerbait, dena tresna bakarrean, agian. · -Nola ireki behar ditut -esan zuen gizon zaharrak-, **kortxoa** ateratzekorik gabe? Edorta Agirre

Emazteari galdetu behar izan zion ea non zegoen **kortxoak** ateratzekoa. Irene Aldasoro

5 *odol ateratze*

-Behazun beltza igan zaio bururat, eta **odol-ateratze** batzuk egin behar zaizkio, ea behazun beltza burutik jaisten zaion, eta arimatik tristura hori kentzen. Joan Mari Irigoien

Antolatu diren 17 odol-biltzetan, 1024 **odol-ateratze** egin dira, bana bertze 60 bat emailerekin aldi bakotx. Herria

Elkarteak adierazi duenez, abuztuan ohikoa da **odol-ateratze** gutxiago izatea, baina aurten 1.182 lagunek behar izan dute odola eta 971k bakarrik eman dute. Berria - Euskal Herria

Ez dirudi diru politikak aproposenak izan direnik: "Erdi Aroko eriari egiten zitzaizkion **odol-ateratzeak** ", Krugmanen iritziz (eta ez dira izango ez horren aproposak bere etxeko eriari irailaren 11ko gertaera izugarrien argitan ezarri dioten tratamendu erabat desberdina ikusirik). Iñaki Heras

6 ***sartu-ateratze*** sartzea eta ateratzea.

Beste batzuetan, gizasemea sentitzen da errudun emakumeak **sartu-ateratzearekin** orgasmoa lortzen ez duelako. Luis Elberdin

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

argazkiak ateratzea (6); **argitara ateratzea** (7)

ateratzea baizik (6); **ateratzea beste** (8); **ateratzea da** (36); **ateratzea dela** (6); **ateratzea edo** (6); **ateratzea erabaki zuen** (12); **ateratzea erabaki zuten** (7); **ateratzea ere** (8); **ateratzea espero** (11); **ateratzea ez da** (12); **ateratzea ezinezkoa** (10); **ateratzea izango da** (7); **ateratzea lortu zuen** (21); **ateratzea lortu zuten** (22); **ateratzea lortzen** (7); **ateratzea nahi** (12); **ateratzea zen** (12)

bertatik ateratzea (11); **bizirik ateratzea lortu** (13); **etekina ateratzea** (8); **ez ateratzea** (30); **garaile ateratzea** (7); **guztia ateratzea** (6); **handik ateratzea** (15); **hartatik ateratzea** (6); **kalera ateratzea** (22); **kanpora ateratzea** (15); **kontuak ateratzea** (6); **onak ateratzea** (6); **ondo ateratzea** (11); **ongi ateratzea** (6); **onik ateratzea** (16); **plana aurrera ateratzea** (7); **zozketaren ateratzea** (6); **zulotik ateratzea** (9)

ateratzean ez (6); **bilkuratik ateratzean** (6); **espetxetik ateratzean** (6); **etxetik ateratzean** (8); **handik ateratzean** (10)

ateratzearekin batera (8)

arantza ateratzeko (19); **argazkia ateratzeko** (14); **argazkiak ateratzeko** (11); **argitara ateratzeko** (6); **aske ateratzeko** (6)

ateratzeko agindu (30); **ateratzeko agindua eman** (7); **ateratzeko ahaleginetan** (7); **ateratzeko ardura** (8); **ateratzeko arrazoi** (6); **ateratzeko asmoa** (20); **ateratzeko asmotan** (7); **ateratzeko asmoz** (16); **ateratzeko astirik** (6); **ateratzeko aukera izan** (9); **ateratzeko aukera izango** (6); **ateratzeko aukerarik** (7); **ateratzeko baimena** (19); **ateratzeko balio** (8); **ateratzeko behar** (8); **ateratzeko bi** (6); **ateratzeko bide** (8); **ateratzeko bidea** (9); **ateratzeko dei** (7); **ateratzeko deia egin** (9); **ateratzeko duen** (7); **ateratzeko egin** (8); **ateratzeko egiten** (6); **ateratzeko erabakia** (7); **ateratzeko erabiltzen** (10); **ateratzeko ere** (6); **ateratzeko esan** (6); **ateratzeko eskatu** (39); **ateratzeko eskatzen** (8); **ateratzeko ez** (8); **ateratzeko gai izan** (6); **ateratzeko garaia** (9); **ateratzeko gauza** (13); **ateratzeko gogo** (6); **ateratzeko gogoa** (12); **ateratzeko inolako** (7); **ateratzeko keinua egin** (6); **ateratzeko lanean** (6); **ateratzeko modu bakarra** (8); **ateratzeko modua** (11); **ateratzeko moduan** (12); **ateratzeko moduko** (9); **ateratzeko ordua** (10); **ateratzeko orduan** (8); **ateratzeko premia** (6); **ateratzeko prest** (20); **ateratzeko prestatu** (8); **ateratzeko prestatzen** (7); **ateratzeko unea** (6); **ateratzeko zorian** (12)

aurrera ateratzeko aukera (7); **batzuk ateratzeko** (15); **begiak ateratzeko** (7); **bere onetik ateratzeko** (7); **berehala ateratzeko** (6); **bertatik ateratzeko** (15); **bizimodua ateratzeko** (18); **bizirik ateratzeko** (13); **dirua ateratzeko** (21); **egiptotik ateratzeko** (9); **egoera horretatik ateratzeko** (6); **egoeratik ateratzeko** (9); **ekimena aurrera ateratzeko** (6); **espetxetik ateratzeko** (8); **etekin politikoa ateratzeko** (6); **etekina ateratzeko** (23); **etxetik ateratzeko** (20); **ez ateratzeko** (59); **garaile ateratzeko** (10); **gazatik ateratzeko** (7); **gehiago ateratzeko** (10); **handiena ateratzeko** (9); **handik ateratzeko** (37); **hartarik ateratzeko** (6); **hartatik ateratzeko** (18); **herritik ateratzeko** (7); **honetatik ateratzeko** (7); **hori aurrera ateratzeko** (10); **hortik ateratzeko** (9); **iraketik ateratzeko** (10); **kalera ateratzeko deia** (8); **kanpora ateratzeko** (18); **kartzelatik ateratzeko** (13); **kontuak ateratzeko** (7); **krisitik ateratzeko** (6); **lehenbailehen ateratzeko** (8); **merkantziak ateratzeko** (8); **nagiak ateratzeko** (6); **odola ateratzeko** (6); **ondo ateratzeko** (8); **ondorioak ateratzeko** (34); **onena ateratzeko** (7); **onik ateratzeko** (33); **partida aurrera ateratzeko** (9); **pistara ateratzeko** (7); **pistola ateratzeko** (6); **plana aurrera ateratzeko** (9); **proiektua aurrera ateratzeko** (7); **proiektuak aurrera ateratzeko** (6); **proposamena aurrera ateratzeko** (12); **tropak ateratzeko** (7); **ura ateratzeko** (14); **zulotik ateratzeko** (28)

ateratzekoa zen (8)

argazkiak ateratzera (6); **ateratzera behartu** (6); **ateratzera joan** (9); **ura ateratzera** (6)

ateratzerik ez (7)

---

aterbe ik **aterpe**.

---

aterbepe *iz ipar* aterbea.

13 orenetan bazkaria **aterbepean** musikariek alaiturik. Herria

Fandango lehiaketak arrakasta handia ukan du, **aterbepean** akulatu baita. Herria

Herriko plazan eraiki **aterbepean** izan da beraz besta bat biziki pollita. Herria

Pilota plazako **aterbepean** , bazkaria Panpi LADUCHE bazterren airosteko. Herria

Larunbatean, "Bixintxotx", hau izan berritsua, hola deituz sagardotegietako moldean prestatu eta zerbitzatu afaria, **aterbepe** berotu batean eginen dena. Herria

---

aterbetu ik **aterpetu**.

---

atergabe 1 *adlag* atertu gabe.

Behin Erromatik zetorrela, **atergabe** ari zuen euria. Askoren artean

Kanpoan, euria **atergabe** ari zuen plaza zabal argi batean. Lopez de Arana

2 irud/hed

Artzain gorenaren aginduari men eginez, konfiantza osoz jo zuen santuak Kristorengana; **atergabe** egin zuen otoitz, eta Jainkoari debozioz erregutzeko eskatu zien lagunei ere. Askoren artean

Eta honelako adierazpenak bihotzez eta ahoz murmurikatzen eta bere sentimendu urrikalgarriak hasperen **atergabez** azaltzen ari zela, bat-batean lozorroak hartu eta estasian erori zen. Askoren artean

3 *izond adkor* bukatzen ez dena.

Gure izurririk latzena, baina, ez dira ez arratoiak ez arkakusoak, euri **atergabea** baizik. Mirentxu Larrañaga

Zirimiri **atergabe** bat botatzen ari zuen baina, artzainek iragarri zutenez, haizea aldatzen hasia zen eta arratsalderako atertuko zuela espero zen. Joanes Urkixo

Oso alai egon nahi zuen eta Johnen xuxurla **atergabea** arretaz entzun, baina zerbaitek iluntzen zion bekoskoa. Lopez de Arana

Gai sakonak horretarakoxe direla, galtzeko, eta ez nork bere burua aurkitzeko edo jakintsu agertzeko; ur handietan daudela gorderik gezur handienak eta ilunpe hartantxe egiten duela ondoen igerian arrain itsu hiztunak, nondik nora dabilen arrastorik gabe eta funtsik gabeko ideia- eta iritzi-botatze **atergabean**. Iñaki Segurola

Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako katolikoen eta protestanten arteko liskar **atergabeetan**. Joan Mari Irigoien

Euria ari zuen: gau osoan jardun zuen zirri-zarra, eta gu hantxe, faroak piztuta, egonean egon arren, **atergabeko** uholde haren jario-marmarraren pean. Joxe Austin Arrieta

-1611n, Murtzian, berebiziko eurijasa **atergabeko** eta ugari horietakoa: bideko komentu mordoxka eta 600 etxebizitza guztiz hondatuak utzi zituen. Pello Zabala

Begi zorrotzekoa zen eta berekin ekartzen zituen askotan distiratze lan **atergabeari** esker jatorrizko edertasunera itzultzen ziren xarmarik gabeko objektu txiki zikin itsustuak. Joxan Elosegi

4 *adlag adkor*

Kanpoan, euria **atergabe** ari zuen plaza zabal argi batean. Lopez de Arana

Atergabe ari zen marabuta lanean, antidoto baten bila. Joxan Elosegi

Atergabe ari nintzen orduan Proust irakurtzen. Joxan Elosegi

Bonbardaketak **atergabe** jarraitzen du, segi eta segi. Mirentxu Larrañaga

Inork ez du sentitu, ordea, haietako dorre jendetsu nahiz hiribide presatuetan, Hegoamerikako bere hiribazter txiroan Ireneo doakabeak, egunez eta gauez, **atergabe** jasan behar zuena bezain errealitate errendiezin baten bero eta presioa. Juan Garzia

Igartzen zitzaion ezen, eraikitzean, arkitektoak **atergabe** borrokatu behar izan zuela jabearen gustuen kontra. Jose Morales

Irudimenak **atergabe** ekartzen digu begien aurrera izateko bidean denaren, izan litekeenaren irudi beti berritua. Juan Garzia

Malko bizi eta saminak zerizkion **atergabe**, agortezinak balira bezala. Mirentxu Larrañaga

Eta ez ote da beldurra, ondorez, gure baitan bizi den munstro bat, lau humoreen iturrietarik osasuna **atergabe** eta etengabe hurrupatzen eta ebasten diguna? Joan Mari Irigoien

Urtzen ari zaizkit begiak negarrez, gau eta egun **atergabe**; nire herria, neskatxa ederra, izugarrizko ezbeharrak jo baitu, eta hilzorian utzi. Elizen arteko biblia

5 (era burutua izen gisa)

Beste **aterpetu** denak eroan eta bera han utzi zuten, frantsesek. Edorta Jimenez

---

atergabeko *izond* atertzen ez duena.

-1611n, Murtzian, berebiziko eurijasa **atergabeko** eta ugari horietakoa: bideko komentu mordoxka eta 600 etxebizitza guztiz hondatuak utzi zituen. Pello Zabala

---

ateri **1** *adlag/iz* euririk, elurrik edo antzekorik gabe; euririk, elurrik edo antzekorik gabeko eguraldia.

Kanpoan **ateri** da, eguraldia goibela izan arren. Aingeru Epaltza

Une hartan **ateri** zen, eta itsasaldeko zerua garbitzen ari zen. Anjel Lertxundi

Gose ez denean janari, **ateri** denean estalki! Patxi Zubizarreta

Kanpoan ilun da, izan ere; barruan argi, **ateri**. Pako Aristi

Ateri dela, euria dela, / kirikun-karikun-pek, / egunak labur, bidea luze, / kirikun-karikun-pek!. Pello Zabala

Eskerrak **ateri** zela. Daniel Landart

Egun osoan niri begira, motorra nola desmuntatzen dudan: banana-hostoak zoruan, eta piezak haietxen gainean dauzkat jarriak han-hemenka; tximistak bai, baina **ateri** dago. Joxe Austin Arrieta

Zelatunera heldu nintzenerako **ateri** zegoen eta haizea ere baretua zen. Juan Luis Zabala

Ateri zegoen eta hodeiek kolore iluna galtzen ari ziren. Joanes Urkixo

Ateri zegoen, baina hotz handia egiten zuen. Jose Morales

Baina Miarritzera sartu zenerako **ateri** zegoen. Migel Angel Mintegi

Eta goizero, euri izan zein **ateri**, egiten genituen mendi-ibilketak direla bide, izterrak eta zangoak ere ez gutxiago. Txillardegi

2 ***ateri egin***

Eni berdin zitzaidan, euri ala **ateri egin** zezan. Daniel Landart

3 ***ateri egon***

Igeldo herri independente bihurtzeko eskaera egitera bertaratu ziren, eta eguraldia portatu zitzaien, **ateri egon** baitzen Kontxako pasealekutik Bulebarrerako bidean. Berria - Euskal Herria

Aroa gauean euri eginik egunaz **ateri egon** zen, bat bertzearekin ezarriz bi egunak, ez dira feiria txarrak izan aurten ere Santa Katalinak. Herria

Goizean, leihotik begiratu eta **ateri zegoela** ikusi ondoren, mendirako prest irten ginen pentsiotik, bizkar-zorro bana soinean. Juan Luis Zabala

Itxuraz, **ateri dago**. Javi Cillero

Abiatu zirenean, **ateri zegoen** oraindik. Karlos Zabala

Baina ez dirudi joko duenik zeruko tximistak, **ateri baitago**. Felipe Juaristi

Eguerdi hartan **ateri bazegoen** ere, eguraldia pisua eta lainotsua zen eta irratiak ilunabarrerako berriz euria eginen zuela adierazi zuen. Iñaki Zabaleta

Orduan **ateri zegoela** ohartu zen, eta halaxe jakinarazi zien besteei. Aitor Arana

Ateri zegoen. Sonia Gonzalez

Elur gehiagorik ez, **ateri zegoen** une hartan. Joxemari Iturralde

"Oraintxe, **ateri dagoela**-ta, bidetxidorretatik abiatuko gara harantz; eta nekez ibiltzen direnentzat (arnasa hartu nuen isilka!) gurdi batzuk baditugu, eta mando mordo bat, haraino iristeko. Txillardegi

Iratzarri nintzenean, **ateri zegoen** eta eguzkia apaltzen hasia zen. Joxan Elosegi

Ateri zegoen, baina hotz handia egiten zuen. Jose Morales

Bere onera etortzen denean, **ateri dago**. Oskar Arana

Ateri zegoen, eta oskarbi. Edorta Jimenez

4 ***ateri izan***

Une hartan **ateri zen**, eta itsasaldeko zerua garbitzen ari zen. Anjel Lertxundi

Ateri zen arren, mehatxu keinua zuen zeruak. Unai Iturriaga

Ateri zen eta haizea pixka bat kalmatua. Daniel Landart

Ateri zen, eta kanpora irten gara, umeak beste kantu batekin utzita. Anjel Lertxundi

Kanpoan **ateri da**, eguraldia goibela izan arren. Aingeru Epaltza

Ateri zen Basurtuko erietxera iritsi direnean. Urtzi Urrutikoeetxea

Gose ez denean janari, **ateri denean** estalki! Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ateri da (3); **ateri dago** (6); **ateri dela** (4); **ateri egon** (3); **ateri zen** (9); **baina ateri** (3); **bainan ateri** (3); **euri ala ateri** (3)
ateria bederen (3)

---

aterki 1 *iz* euritik babesteko tresna, makila eskutokidun baten buruan lotzen den, eta heda eta toles daitezkeen altzairuzko ziri batzuetan josten den tela zati batek osatua.

Emakumezkoek eta jubilatuek beti erabiltzen zuten **aterkia**, euria ari zuenean. Karlos Linazasoro

Martinek **aterkia** ireki eta autobus geltokiraino lagundu zuen irakaslea. Aritz Gorrotxategi

-Harlauzak heze direnez, arretaz ibil zaitez, jauna -esan zuen emakumeak **aterkia** ireki bitartean. Ibon Uribarri

Hortaz, katiuskak, xira eta **aterkia** hartu, eta hor joan nintzen Julianen etxera. Xabier Mendiguren Elizegi

Berriro zabaldu zuen **aterkia**, bere buruaren ingururan bira egiten zuela eta nire aurrean barrez hasten, baita ni ere harekin batera. Joan Mari Irigoien

Aterkia biltzen ikusi zuen, ez zuela ari konturatu zen. Koldo Izagirre

Bada, badirudi lehengoan **aterkia** galdu zuela. Joan Mari Irigoien

Aterkiak eta txanoak, zapatilla zuriak, botilak eta errege lizundua, hiltegiko zaindaria Traleeko Arrosa kantari, gelan bueltaka zebiltzan denak Horma hiru aldiz jo zuen **aterkiaren** muturraz. Koro Navarro

Lata bat ostikoka gure bidelagun bihurtzeko, harri bat **aterkiaren** giderrarekin golfean jolasteko, txakur bi elkarri zaunkaka edo bata bestea estaltzen... Xabier Mendiguren Elizegi

Norbait dabil **aterki** bat makulutzat, harekin belarra apartatzen; **aterki** bat ari da elurra eta mendeak zulatzen, geruza berrien bila. Harkaitz Cano

Elurretan ere aritu naiz aurten kanpoan pintatzen, **aterki** batek babestuta. Berria - Kultura

Aterkiaren ardatzera hurbilduko naun edonola ere, eta orduan ukabilak neskaren izterraren higidura hartu du mahonezko galtzaren eta oihal arrunteko gona eta azpigonaren gaindi, bostekoa estutzerakoan hartu dinadana baino taupada beroagoan. Koldo Izagirre

Ruth Prynne eta Cassandra Wilkins euren **aterkien** ur-tantak inarrosiz sartu ziren. Lopez de Arana

Gnomo bat patriarka-bizar zurikoa -kuleto faltsu bat **aterkitzat** zuela-, katuen familia bat portzelanazkoa, eta arabiar oihal-etxe bat datilondo eta guzti -benetako artelana, Steffiren aitak egina kortxoekin-. Anton Garikano

Aterkiek putzu txikiak uzten dituzte baldosetan. Alberto Barandiaren

Euria leihoetan zartaka, eta paretako zira eta **aterkien** euri-negarrak tantaka joan eta elkartzen ziren istil txikitan lurrean. Anton Garikano

Aterkipean asko dabilenak, horrek bai, horrek badaki noiz ari duen lanbroa, noiz sirimiri ttikia, noiz sirimiri bette-bettea, noiz eurittikia, noiz euri motela, noiz euri axkarra, eta noiz eurijasa eta zaparrada mardula... Pello Zabala

Ez dago, **aterkiaren** atabalean, euri bakoitza bezalako perkusiojolerik. Pello Zabala

Hartan ari nintzela, abokatua hurbildu zait eta bere **aterkiarekin** babestu nau. Anjel Lertxundi

Aterkiarekin joka hasi zitzaion ama. Juan Kruz Igerabide

Uf!, euria hasi du, eta jende gehiena beren **aterkipean** babestu da. Josu Zabaleta

Lauaxetak bizkar-zorrotik ateratako **aterki** handi baten babesean jarri ginen bide bazterrean auto-stop egiten. Juan Luis Zabala

Mutilak **aterki** txiki bat ateratzen du besapetik. Anjel Lertxundi

Aterki beltz baten pean ezkutatzen den hogeita bi urteko neskak izkinatik begiratu ditu bi tipoak, eta hankadun zaku busti penagarriak iruditu zaizkio. Eider Rodriguez

Gogoratuko zara behintzat, nola etorri zinen estaziora ni agurtzera, frontera abiatu nintzenean, **aterki** zuri batekin? Harkaitz Cano

Zetazko **aterki** dotore hori daraman amona, kasu. Anton Garikano

Kapusaia jantzirik zuen eta esku batean **aterki** bustia zekarren. Lopez de Arana

Aterki trenpatuak bazter batean zintzilikatu genituen eta moleskinaz estali jargien malguan ohatu ginen, edariak mahaian. Itxaro Borda

Une hartan, Hagridek sofatik salto egin eta beroki azpitik arrosa-koloreko **aterki** hondatu bat atera zuen. Iñaki Mendiguren

Orain ez du euririk ari, Bilboren agertokia atontzen duen zirimiri betierekoa besterik ez, baina badaezpada **aterki** tolesgarria sartu dut makutoan. Sonia Gonzalez

Erraldoi bizartsu batek **aterki**-muturraz zulatzeko arriskuaren aurrean, osaba Vernonen adoreak pot egin zuen berriro; paretaren kontra kikildu eta mutu geratu zen. Iñaki Mendiguren

Hurbil zedin eskatu zion **aterki** azpian erdi gordeta zegoen andre bati, eta biak polaroidaren bisorean hartu nituen. Bernardo Atxaga

Eta Oteiza-ren lantegiko eraikin berria alegeraki estreinatua izan da, hor zirelarik ere hautetsi "handi" batzu, bertzeak bezain umil haatik beren **aterki** pean. Herria

Salerosketa asko espaloietan egiten dira, eta bizarginek, oskileek, **aterki**-konpontzaileek pasieran zoazela beren zerbitzuak zuzen-zuzen eskaintzen dizkizute. Gotzon Garate

Pentsatzen du sektore publikoaren **aterkiarekin** dena konpontzen dela, baina Espainiako ontziolak izan dira laguntza gehien jaso dutenak eta porrotean daudenak. Berria - Ekonomia

Ez al da hori kritikatik babesteko **aterki** bat? Berria - Kultura

2 *aterki-konpontzaile*

Salerosketa asko espaloietan egiten dira, eta bizarginek, oskileek, **aterki-konpontzaileek** pasieran zoazela beren zerbitzuak zuzen-zuzen eskaintzen dizkizute. Gotzon Garate

3 *aterki-ontzi* *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Aterki-ontzia edo euritako-ontzia aterkiak eta makilak gordetzeko altzaria da. Eskuarki, korridorean aurkitzen da etxe baten sarreran edo eraikin baten sarreran. ETC-entziklopedia

Aterki ontziak, koadroak, oheak, erretratuak... dena dago han, baina azkenean ez dago ezer. ETC-prentsa

Zazpi urte lehenago, 1980ko goiz batean, Rosa Morenok, nire amamak xiringa bat aurkitu zuen etxeko **aterki-ontzian**. ETC-prentsa

Berokia sarrerako pertxeroan zintzilikatu duenean, begiek alboan dagoen **aterki-ontzira** egin diote ihes. ETC-literatura, saiakera

Zazpi urte lehenago, 1980ko goiz batean, Rosa Morenok, nire amamak, xiringa bat aurkitu zuen etxeko **aterki-ontzian**. ETC-literatura, saiakera

Aurpegi txarren anabasan galduta, **aterki-ontziaren** alboan kukutu nintzen. ETC-literatura, saiakera

Pantailak lurrean eroritako **aterki ontzi** bat argitu zuen. ETC-literatura, saiakera

Etxeak bi ate balitu, edo hiru, ate adina **aterki-ontzi** jarriko zenuke? ETC-literatura, saiakera

Sarreran, hirurek esekitokitik kapelak hartu, **aterki-ontzitik** makilak atera, bizkarra isilik makurtu eta alde egin zuten etxetik. ETC-literatura, saiakera

4 *aterki tolesgarri* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Orain ez du euririk ari, Bilboren agertokia atontzen duen zirimiri betierekoa besterik ez, baina badaezpada **aterki tolesgarria** sartu dut makutoan. ETC-literatura, saiakera

Emakumeak **aterki tolesgarri** busti bat zeukan eskuineko eskuan, putzua egiten ari zena lanpasaren aldamenean. ETC-literatura, saiakera

Bazterrera atera nituen zaku beteei erreparatu zien, guztien gainetik ageri zen haizagailu zaharrari, katiuskei, flotagailu, lotarako zorro, jostailu erdi hautsi eta **aterki tolesgarri** andanari, baina ez neoprenozko buzo erori berriari. ETC-literatura, saiakera

Arratsaldeko zazpietarako jadanik nekaturik nengoen hautuak egiteaz: arraina ala okela, berokia ala jaka, D?a ala Froiz, kafea Ameliarekin ala Afonsorekin, **aterki tolesgarria** ala, ala, ala. ETC-literatura, saiakera

Arratsaldeko seiak jo dutenean Pello Lizarralde sartu da atetik, **aterki tolesgarria** eskuan, eta bi gazteengana gerturatu da. ETC-prentsa

NEKANEk NAROAk dakarren zorroa seinalatzen du, irribarretsu. Zorrotik **aterki tolesgarri** bat ageri da nabarmen. NAROAk ikusi egiten du eta "glups" aurpegia jartzen du. ETC-telebista

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aterki bat (10); **aterki batek** (3); **aterki baten** (4); **aterki gorria** (3); **aterki handi** (3); **aterki zuri** (3)
aterkia hartu (4); **aterkia ireki** (3)
aterkirik gabe (3)

---

aterkiontzi *iz* aterkientzako ontzia.

Anoraka atera nuen armariotik; aterkia hartu nuen **aterkiontzitik**. Karlos Linazasoro

Atarira atera zen etxeko sarreran **aterkiontzi** baten barruan prest zeuzkan euritako zabala eta txikia hartu ostean, eta berehala hurbildu zen auto heldu berrira. Aitor Arana

---

aterkipean *(ETCn **225** agerraldi, horietatik **114** azken sei urteetan) adlag* aterkiaren azpian.

Emakumeen besoak belarra jiratzen, Rosamarirekin egona zenez gero ez zuen amets egiten hegaberekin, tiraputzaren kolpea baino hunkigarriagoa zen **aterkipean** bizi izan zuena. Koldo Izagirre

Uf!, euria hasi du, eta jende gehiena beren **aterkipean** babestu da. Josu Zabaleta

Aterkipean asko dabilenak, horrek bai, horrek badaki noiz ari duen lanbroa, noiz sirimiri ttikia, noiz sirimiri bette-bettea, noiz eurittikia, noiz euri motela, noiz euri axkarra, eta noiz eurijasa eta zaparrada mardula.... Pello Zabala

Protagonismo nahi horren azken kapitulua atzo izan zen, finalerdietako lau tenislariak **aterkipean** utzi behar izan zuten pista Berria - Kirola

---

ateroma *(corpusean ez dago; ETCn **57** agerraldi) iz* arterietan gertatzen den zuntz eta lipidoen pilaketa.

Ateroma arterietako hormetan gantza neurriz kanpo biltzen denean ehunak desegin eta barruan dituzten gaiak protoplasmara botatzen dituztenean sortzen den eritasuna da. ETC-entziklopedia

Azido azetilsalizilikoa, esaterako, **ateroma** plakako plaketen metaketa prebenitzen du. ETC-entziklopedia

Estatinak lipido/kolesterol modifikatzaile erabilienak dira, **ateroma**-plaken egonkortzea eragiten dutenak. ETC-entziklopedia

Tronbosia koagulu batek, tronbo izenekoa, eragindako odol-hodi baten buxadura da, normalean hodiaren horman hazten den **ateroma** plaka batek eragindakoa. ETC-entziklopedia

Hizketan hasten da hain gaztea ez den medikua: sindrome koronario akutua bezalako hitz desatseginak botatzen dizkit aurpegira, kateterismoa, arteria koronarioak, **ateroma**, ez da isiltzen. ETC-literatura, saiakera

Arteriaren paretan **ateroma**-plakak eratzen dira -zona jakin batzuetan agertzen diren paretaren loditze-guneak- paretaren barrualdean gantza (kolesterola batik bat), zelulak eta beste partikula batzuk pilatzen direlako. ETC-prentsa

Eta ez dago inolako daturik esateko karbohidratoek -azukreak tarteko- gehitzen dutenik istripu kardiobaskularrak izateko arriskua, ez baita frogatu zerikusirik duenik arterietan **ateroma**-plakak sortzearekin. ETC-prentsa

Erretzeko ohiturak **ateroma**-plaken sorkuntza eragiten du arterietan. ETC-prentsa

Arterietan pilatuz doazen **ateroma** plaken sorrera errazten du tabakoak. ETC-prentsa

Bi mekanismoren bidez sortzen da: arteria koronario baten espasmoa badago edo **ateroma** plaka batek arteria horien argia txikitzen badu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esaterako, **ateroma**-plaka bat hautsi edo ultzeratu egiten bada edo arteriaren paretaren disekzioa gertatzen bada, hemostasia-sistema piztu egingo da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aterpe *(orobat **aterbe** g.er.)* **1** *iz* euritik begiratzeko babeslekua; babesa. ik **estalpe**.

Zutabedun ataria ere egin zuen; hogeita bost metro zen luze eta hamabost zabal. Honen aurrean zutabedun beste atari bat ere egin zuen, bere **aterpe** eta guzti. Elizen arteko biblia

Familia zen zure imaginarioa eta bihotza babesten zituen **aterpea**. Ana Urkiza

Mendian **aterpea** bilatu zuten borda batean, baina artzain kabroi batek laguntza eman zien soldaduei haien bila joateko. Jokin Urain

Babes bila ibili naiz, Stella, itoginez jositako **aterpe** batetik bestera, eta ni ekaitzaren erdi-erdian nengoen. Xabier Paya

Ez al daude, ba, **aterpean**, hemen, Jainkoaren etxean! Jon Muñoz

Hau ez da gaueko **aterpea**, maitea! Jose Morales

Ni **aterpean** nengoen ordea, eta gaitz erdi. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire historiak isiltasuna behar luke **aterpe**. Anjel Lertxundi

Belar-meta haren **aterpean** babesturik entzun nuen, lehenengoz, gerraren berri. Mirentxu Larrañaga

Ur likatsu eta kirasdunean uzkurtu naiz, **aterpe** bila. Mirentxu Larrañaga

Eskolatik itzuli nintzenean, ikatz adreiluen pila, gelaren kanpoko hormaren kontra **aterpean** egoten zena, botea zegoen, eta ez nekien non ipini hankak. Juan Kruz Igerabide

Etxez aldatu ondoren, Residence de Jeunes Travailleurs izeneko **aterpe** moduko batean jarri ginen bizitzen. Rafa Egiguren

Beste tenore batean neskame jendearentzat teilatupean prestatutako ganbaratxo horietako bat zen, eta hantxe aurkitu genuen egun hartako geure desirentzako **aterpe**. Patxi Zubizarreta

Jendea dabil **aterpean**, apur bat urrunxeago dauden salmenta-postuetan baino gehiago menturaz. Urtzi Urrutikoetxea

Zorrotzaurre, hiriko industriaren azken bilgune eta house eta progressivearen maitaleen **aterpe**. Urtzi Urrutikoetxea

-Ez ezak sekula atzera egin, errekako urak eta zeruko eguzkiak ere ez baitute sekula atzera egiten! - aholkatzen zion Noraren aitak, arranditsu, asmatzaileak eskainitako **aterpea** onarturik, haren asmazioari buruzko xehetasunak entzuten hasi orduko. Anjel Lertxundi

- Langile batailoi osoa **aterpe** eske Frantzian... Koldo Izagirre

Zeu ere bordako **aterpean** sartu zinenean soilik ulertu zenion irribarre zabal batekin esaten zizuna: Hasier Etxeberria

Lesakatik tiroka bidali gaituztenetik **aterpe** bila egin dinat egun osoa. Aingeru Epaltza

Non **aterpea** bilatu? Joxan Elosegi

Geltokia baino lehentxeago, zubi akabuko **aterpe** horretan, soinujole itsu bat egoten da beti, betaurreko beltzekin, eta, hala ere, begietako zuringoa agerian, gorantz begira balego bezala. Harkaitz Cano

Buhamearen alaba gehienak etxola doiaren **aterpean** dindilizka zebilen sua indartu zuen. Itxaro Borda

Bere mahaia eta **aterpea** onar genitzan tematu zen, eta guk amore eman genuen erbi-festan partaide izatetik salbatu gintuen gizona ez minberatzeko. Bernardo Atxaga

Ximunekin zeharkatu nuen Kale nagusia, erromesen **aterpetik** hasirik Arga ibaia gainditzen duen zubi ederra hartu arte. Piarres Aintziart

Florentek estalpeko kale baten **aterpera** hainbat minutuz sartzera behartzen zuen; zenbaitetan Lebigreren tabernara eraman ere egin zuen, ardo beroa edatera. Karlos Zabala

Adarrez egindako **aterpe** txiki baten azpian zegoen, sutarako egurrez erdi betea. Joanes Urkixo

Monikeren etxepetik igarotzen ari da Mikel, elkarrekin usaindu izan duten zuhaitz loratuaren azpitik, hainbatetan **aterpe** izan den autoaren albotik, terrazatik hainbestetan

miretsi duten bitsezko zerupetik. Eider Rodriguez

Ez zigun uzten mendiko ibilaldietara koñaka edo azukre-koxkorrik eramaten, "beltzen kontuak" omen ziren, eta ezin ginen gelditu **aterpeetan** merendatzera, hori ere belzkeria omen. Fernando Rey

Bizitzeko lurrezko **aterpe** edo lastozko etxola txar batzuk besterik behar ukan ez zuenean ere, hildakoentzat harrizko monumentu ikaragarriak eraiki baitzituen. Patziku Perurena

Atzerago, ordea, haranean zehar hedaturik, kanpaina-dendak eta **aterpeak** agertzen ziren ilaratan, makilei loturiko zaldiak, arma-meta handiak eta lantza-sorta zutituak, zuhaitz landatu berriek betetako mendien antzera. Agustin Otsoa

Ez zuen inondik ere alabatzat hartu, ezta **aterpea** eta hezibidea eman Noelia pertsona agurgarri izan zedin. Jon Muñoz

Autobusen geltokiko **aterpean**, eserlekuan jesarrita, bikote bat musuka ari zen. Fernando Morillo

2 (izenondoekin)

Papoan behera, titi buruak zipriztinduz, isuri zuria ketan hedatzen sumatu zuenean, Txokok nagusiaren **aterpe** sekretutik ihes egin zuen. Itxaro Borda

Euria hasten badu, berriz, **aterpe** zabala dugu eliz atariko teilatupe irekian. Juan Luis Zabala

Anaia gara nahigabean, anaia puten **aterpe** beroan. Karlos Linazasoro

Zinez diotsut legoa laurden baten buruan **aterpe** ona aurkituko dugula. Koldo Izagirre

Zakila iratzarri egiten da, aztoratu, handitu, gogortu, berotu, eta burua altxatu, inguruetara begiratu eta **aterpe** epel eta heze baten bila hasten da. Luis Elberdin

Hargatik, nonbait egia hutsaren aditzea ez zitzaidan eder: bakoitzak eraikitzen zuen bere **aterpe** bizigarria, onargarri zitzaizkion gezurrak teila gisa erabiliz. Itxaro Borda

Barrutik forratutako kutxa bat ematen zuen hark, munduaz ahaztu eta ehun urtez lo egiteko **aterpe** aparta. Bernardo Atxaga

Handia da oroimenaren indarra, handia benetan, ene Jaungoiko, **aterpe** zabal, amaigabea; nor iritsi da sakoneraino? Imanol Unzurrunzaga

Udan ondo egoten da **aterpe** handirik gabe, baina zer gertatuko da gero, udazken eta neguan, eguraldi-aldaketarekin? Jon Arretxe

Aterpe seguru bila Joxe Azurmendi

Gero bazar egiptoarrera jaitsi naiz beste ostera bat egitera, eta haren **aterpe** usaintsu eta koloretsuan bilatu dut babesa. Jon Arretxe

Zeru hain urdinerantz begira gelditu ginen guztiok, espazioan zuloren bat aurkitu nahian bezala, **aterpe** aingerutiarren bat. Karlos Linazasoro

Aterpe hutsean berokiak astindu zituzten, elurra eserlekuetan barreiatuz, eta, elkarren ondo-ondoan oraindik ere, bolatokiko leihoaren aldamenean eseri ziren. Koro Navarro

Aspaldiko partez **aterpe** gozoan zegoela sentitu zuen Txitxikovek. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Familia bizi zen Bordaxar baserria **aterpe** lekutzat hartua zuten karlistek, ehunka gudari bizitako neguak ere bai omen ziren. Pablo Sastre

Lekua, luzean, hori baino handiagoa baldin bada, jar bitez muturretan solaserako **aterpe**-gelak (chalcidica), Akileako Julia Basilikan dauden bezalakoak. Santiago Iruretagoiena

Ibiltokian sartu eta euria jauts ahala ari dela ohartzen naiz oraino gehiago, teilatu hegi guzietarik eta **aterpe** bazter guzietarik ura turrustaka. Filipe Bidart

Ulertu behar omen genuen: Suitza herrialde txikia dela, ez dagoela lekurik ezin konta ahala iheslarirentzat, **aterpe**-eskubidea, bai noski, baina Hannak aski denbora izan zuela bere erbesteratzea izapidetzeko. Joxe Austin Arrieta

Jarrera hau, politikoki zikindu gura ez duen intelektual, literato, sindikalista edo apaiz jende askoren **aterpe** erraza izaten da. Joxe Azurmendi

Aldapan gorakoan, ezkerretan, eraiki duten **aterpe** kaxkarrera iritsi naiz, dexente akiturik. Txillardegi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezker eta eskuin, arbola ttipi pollitak eta laster behi edo zaldi **aterpe** zahar baten ondotik, xaradi bat, zernahi zuhaixka sistakor elkarri lotuak daudela. Piarres Aintziart

5 ***aterpe eman***

Gorpua lurpean sartu eta hurrengo egunean lur gainean agertzen zen, "Nafarroako lurrak bere baitan traidore bati **aterpe** eman nahi izan ez balio bezala", idatzi zuen Iturraldek. Martin Anso

Hiriko ospitaleak **aterpe** ematen zien Donejakuera joaten ziren erromesei, baina erromes horiek berak larrutzen bi-de-lapur eta ohoinek. Aingeru Epaltza

-Ustekabeko ostalariei **aterpe** ematea eta gehiegizko janariak hartzea eta gauza horiek ezinezkoak dira - erantzun zuen Hobek. Agustin Otsoa

Neska izutu egin zen, eta arnasari **aterpe** eman ezinik gelditu zitzaizkion birikak. Anjel Lertxundi

Astearte buruzuri batean ohi zenez, Antonio Musu-tristeri ez ezik, ostatuak dozena erdi bezerori ematen zion **aterpe**: berandu afaldu aitzineko azken errondan, batzuk; goizik afaldu ondoko lehen kopaxkan, bertzeak. Aingeru Epaltza

Banbuzko apalategi bat zegoen atearen ondoan, gelako sarrera babestuz eta hainbat oroigarri txiki eta maitagarriri **aterpe** emanez. Javi Cillero

Ez zituen gogoz kontrako txakurrak eta gogoko zuen, nolabait ere, gizaseme bihozbera antzo irudikatzea bere burua, abere babesgabeei **aterpe** ematen zekien horietakoa. Mirentxu Larrañaga

Gero ez zen izan **aterpe** emate horrekiko esker onik, eta faxistek erasoari gogor ekin zioten euren lekuak berreskuratu zituztenean. Jokin Urain

Luteziaren gorputza ez nuen maite emakume maitatuarena zelako, baizik eta nolabait geriza, babes, **aterpe** ematen zidalako Lakatosen beldurrari ihes egiteko. Matías Múgica

6 ***aterpe-etxe***

Gure aitak, gehientsuenetan, Clavièresko "Capanna Mautino" izeneko **aterpe**-etxean ematen zuen gaua. Fernando Rey

Biharamunean, hiri hartako Atzerritarren Babes Etxeko zuzendariak polizia-etxe guztiei igorritako e-mail baten medioz jakinarazten zuen, gauerdiaz geroztik, bazutela 13 urteko mutil bat beren **aterpe**-etxean jasoa. Josetxo Azkona

Hari pentsatuz lotu nintzen bertze lan bati ene misio bidean: **aterpe** etxe bat muntatu Baionako portura etortzen diren itsas gizonendako. Menane Oxandabaratz

7 ***aterpe hartu***

Taberna nahikoa bete da honezkero, lanetik irtendako batzuek **aterpe** hartu dute berton, zerbezaren bat edo halako zer edo zer eztarriratzeko asmotan. Paddy Rekalde

Markesina azpian hartu nuen **aterpe**. Anjel Lertxundi

Azkenean, goizeko bostak aldera, Juanen pisuan hartu nuen **aterpe**. Iban Zaldua

Hori dute zoncerek, ustezko iraganean hartzen dutela **aterpe**, mitotik gertu, deserrealitatean direla hazten, ahazten dituela bideko lokatzak eta, edozein kritika bide bozatuz, hala dutela lasaitasun amniotikoa eman eta zabaltzen. Iñigo Aranbarri

Bentara bidean jartzekotan nintzela, ordea, sekulako elur-erauntsia hasi du, eta hirian gelditu behar izan dut, ahaide baten ostatuan **aterpe** harturik. Anjel Lertxundi

8 ***mendi aterpe***

Ligaxka larunbatean hasiko dute Oiartzunek eta Hernanik Oiartzungo Harritxulo **mendi aterpean**. Berria - Kultura

Zurezko bungalow bat aukeratuko duzu, Gorbeia edo Iratiko **mendi aterpe** zaharren modukoa, baina holiday inn modernoenen erosotasunekin. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

adarrez egindako aterpe (2); **armadaren aterpe** (3); **askoren aterpe** (2); **aterpe bakarra** (2); **aterpe bakarti hartan** (2); **aterpe bako** (2); **aterpe bat** (5); **aterpe batean** (8); **aterpe baten bila** (3); **aterpe batera** (3); **aterpe batzuk** (2); **aterpe berri** (2); **aterpe berria** (3); **aterpe berriaren** (2); **aterpe bila** (22); **aterpe bilakatu** (2); **aterpe da** (4); **aterpe eman** (7); **aterpe ematen** (4); **aterpe eske** (4); **aterpe eskean** (2); **aterpe eta bizileku** (6); **aterpe eta janari** (2); **aterpe etxean** (2); **aterpe gisa** (2); **aterpe hartan** (2); **aterpe hartu** (2); **aterpe hau** (3); **aterpe izan** (2); **aterpe militarrean** (2); **aterpe pollit** (2); **aterpe segurua** (2); **aterpe xume bat** (3); **babes eta aterpe** (2); **baita aterpe** (2); **bati aterpe eman** (2); **bere aterpe** (2); **beren aterpe** (3); **bi aterpe** (2); **bideko aterpe** (4); **bideko aterpe berria** (2); **egindako aterpe** (2); **ekaitzean aterpe** (2); **emango diotenen aterpe** (2); **erromesen aterpe** (3); **espainiako armadaren aterpe** (2); **gaiztoen aterpe** (2); **gaua pasatzeko aterpe** (3); **goratuko dutenentzat aterpe** (2); **haren aterpe** (2); **hartu dute aterpe** (5); **hartu nuen aterpe** (2); **hartu zuen aterpe** (3); **hartu zuten aterpe** (4); **hiru aterpe** (3); **igarotzeko aterpe** (2); **izan zuen aterpe** (2); **izeneko aterpe** (2); **mendiko aterpe** (2); **negurako aterpe** (2); **pasatzeko aterpe** (3); **pasatzeko aterpe eskean** (2)

aterpea bertan (2); **aterpea bilatu** (7); **aterpea bilatzen** (4); **aterpea eman** (4); **aterpea emateko** (4); **aterpea ematen** (3); **aterpea eskaini** (2); **aterpea eta logela** (2); **aterpea hartu** (2); **aterpea sortuko** (2); **aterpea utzi** (2); **gaueko aterpea** (5); **jana eta aterpea** (2)

emakumeentzat aterpeak (2)

aterpean erretzen (2); **aterpean sartu** (6); **aterpean sartu orduko** (3); **aterpean zeuden** (2); **elizaren aterpean** (2); **espainiako armadaren aterpean** (2); **salomonen aterpean** (2)

aterpearen beste aldean (2); **aterpearen ondoan** (2)

aterpeetan ere (2)

aterpera itzuli (2); **aterpera joan** (2); **aterpera noa** (2)

aterperen bat (2)

aterperik batere gabe (2); **aterperik eta janaririk** (2); **aterperik ez** (16); **aterperik ez duen** (4); **aterperik ez duten** (2); **aterperik ez dutenei** (4); **aterperik ez zuen** (2); **aterperik gabe** (18); **aterperik gabe gelditu** (4); **aterperik gabe utzi** (2); **aterperik gabeko** (12); **aterperik onartzen** (3); **aterperik onartzen ez** (2); **beste aterperik** (4); **beste aterperik onartzen** (2); **ez dute aterperik** (2); **iaz aterperik gabeko** (2); **lagun aterperik gabe** (2)

aterpetik irten (3)

---

aterpetu, aterpe(tu), aterpetzen *(orobat **aterbetu** g.er.)* **1** da *ad* aterpe baten azpian babestu.

Joantto ez zen etxeratu gau hartan; ostatu batean **aterpetu** zen egunsentiraino eta, orduan, plazara itzuli zen eta luzaz egon zen gillotinari so. Elena Touyarou

Zenbaitek mendiak zeharkatu zituzten, eta mugaz haraindian **aterpetu** ziren, baina anitz beren herrietan egon ziren, fededunek gerizaturik. Elena Touyarou

2 babesa hartu.

Bitartean, faxistak Madrilen sartuz gero euren enbaxadan **aterpetu** zitezkeela esan zieten Herbehereetako diplomatikoek, Paraguaikoek, Poloniakoek, askok. Edorta Jimenez

Gaur arte haiek baizik ez zekiten hiri handi arrotz batean ene burua **aterpetzea** eta, han izenorde batekin ezezagun eginik, zenbait urtez, argitaratuak nituen liburuxkak berrikustea eta, marrazkiturik neuzkan beste zenbait lan orraztatzea, argitaratzea eta, azken eskuztatze baten ondotik uztea. Piarres Xarriton

Metropoli erraldoietako karrika hegietako kabina telefonikoetan **aterpetzen** naiz, iluna jaisten den ber, euri zeharrak kabinako bitrak kolpatzen dituela. Itxaro Borda

Bat-batean, ehiztariek **aterpetzeko** erabiltzen dituzten etxola horietarik bati ohartu zen. Elena Touyarou

Ez zekien zer egin bera eta haurra hor **aterpetzearen** ordaintzeko. Elena Touyarou

3 irud/hed

Errefuxiatuak **aterpetzen** zituzten familia osoak, aldiz, Paris aldeko kartzeletara bidaltzen zituzten. Itxaro Borda

Ez ziren geriza ofizialetan **aterpetzera** atrebitu: zeremoniek zirauteno etxekoek kanpoan egotera deitu zituzten. Itxaro Borda

Eraikina erabat hutsik zegoen ustez eta hilketa burutu zen tenorean, oroz gain profesionalen bulegoak eta merkataritza-enpresen egoitzak **aterpetzen** baititu. Aingeru Epaltza

---

aterpetxe **1** *iz* aterpe gisa erabiltzen den etxea.

San Migel Goiaingeruaren Aralarko baselizan hantxe zintzo asko Joxe Mari Zabaleta laguna, Mari Jose Salgado legazpiarra Santo Domingon Errioxan, Belaguako **Aterpetxetik** ere izan genuen aldika berriemailerik. Pello Zabala

Horren zeregin nagusia **aterpetxeak** sortzea izango da, aterpetuei zer jan eta non lo egin emateko ez ezik lanbideren baten irakasteko ere. Edorta Jimenez

Aterpetxeetako logelatzarrak ez dira larru aferetarako lekurik aproposenak. Aingeru Epaltza

Lehen hotzarekin batean, atariak edo etxe hustuak bilatzen zitinan, eta negu beltzean, berriz, monjen **aterpetxera** jotzen zinan. Aingeru Epaltza

Muzin egiten dio berak urrunago ihes egiteari, eta muzin, era berean, **aterpetxeren** batean kasik preso egoteari -ez da ageri Juan Duñabeitiaren izena Landetako **aterpetxeetako** zerrendetan-. Edorta Jimenez

Gaur bezala muturreko hotza egiten duenean, bestalde, furgoietan sarrarazi eta **aterpetxeetara** joatera behartzen dituzte. Harkaitz Cano

Aterpetxe hurbilaren usainean, bezero nekatu eta izorratuenek ere arindu dute pausoa. Aingeru Epaltza

-Segi **aterpetxeraino**, orain naiz zuekin -erran dio, imintzio behar baino bortitzagoaz. Aingeru Epaltza

2 ***gazte aterpetxe*** *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Gazte aterpetxea, haur eta gazte taldeentzako logela kolektiboak dituen etxea. ETC-entziklopedia

Mendiaren gorenean, **gazte aterpetxe** bat, "pic nic" egiteko gune bat eta antzinako uso tirorako instalazioak daude, itsasoaren gaineko terrazadun taberna txiki baten ondoan. ETC-entziklopedia

Goizean goizik iritsi nintzen Chicagora; **gazte-aterpetxean** gela bat hartu, eta sakela ximur lotaratu nintzen. ETC-literatura, saiakera

Gazte aterpetxeak dira, eta gazteei zuzendutako baliabidea da, baina gure helburua da edozeini erabiltzeko aukera ematea. ETC-prentsa

Donostian **gazte aterpetxea** ireki berri dute; Argomaizen, paradorea. ETC-prentsa

Gazte-txartelarekin, Madrilgo eta Kataluniako **gazte aterpetxeetan** izango dituzue, besteak beste, deskontuak. ETC-prentsa

Saioak esan digunez, "hirietan **gazte aterpetxeetan** egin genuen lo; jende pila bat zegoen bertan, baina ondo moldatu ginen". ETC-prentsa

---

aterraldi *iz* ateri dagoen aldia.

Beharrik ilunak **aterraldia** ekarri duen. Aingeru Epaltza

Zenbaiten ateraldien alderdirik onena **aterraldia** izaten da. Joxerra Garzia

---

aterrarazi, aterraraz, aterrarazten *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* **1** du *ad* atertzera behartu.

Azkenean, burgesia susmatzen hasi zen ez zela Santa Genoveva euria ematen eta **aterrarazten** zuena baizik eta Jainkoa bera zela naturako elementuak kontrolatzen zituena. ETC-literatura, saiakera

- Osantzak, jakin-minez, bide batez latin zaparrada hura apur batean **aterrarazi** eta burua erasotzen zioten dingili-dangalakadei tregoa txiki bat ematearren. ETC-literatura, saiakera

Baina aterkia irekitzeak ez du eguraldia **aterrarazten**. ETC-prentsa

2 du *ad* geldiarazi.

Noski, gaztetasunaren distira zerion oraindik gau hartan amaren begitarte ederrari, eskuetatik hain goxoki heltzen eta malkoak **aterrarazten** saiatzen ari zitzaidala. ETC-literatura, saiakera

---

aterrarte *iz* aterrunea.

Kattalinek kanpora ateratzea proposatzen die, eguna oraino argi deno eta **aterrartea** eta hodei beltzen artetik agertzen den eguzki izpia baliatuz ibilaldi baten egiteko, ideiak aldatuz bidenabar. Eneko Bidegain

---

aterrune **1** *iz* ateri dagoen unea, atertzen duen unea.

Denboralea zetorren, baina ordu bitarako **aterrunea** bazen gutxienik. Josu Landa

Egun batez, idatzi bat erakutsi zien -besteen ideia zaparradaren **aterrune** batean- erakundeetan aurkezpen modua egiteko. Iñaki Iñurrieta

Negua izugarri gogorra izan zen; **aterrunerik** gabeko hotzak eta eguraldi euritsuak tristeziara gonbidatzen zuten. Patxi Iturritegi

Gustavok lema hartu eta geroxeago etorri zena barealdia izan zen, erabateko **aterrunea**. Felipe Juaristi

2 irud/hed

-Amsterdamen izan dira duela bi aste -informatu nau Luisak alkoholaren **aterrune** batean-. Pako Aristi

---

atertu, ater(tu), atertzen **1** da/du *ad* euria, elurra eta kidekoak egitetik gelditu.

Goizaldera **atertu** zuen, bat-batean, dutxa ixten duzunean bezala. Joxe Austin Arrieta

-1636ean, Segovian, errogatibak Fuencislako Ama Birjinaren aurrean, abendu horretako euriteak **ater** zitezen. Pello Zabala

Tarteka, eurijasa eta **atertu**, ongi partituta datorren euria bendizio da. Pello Zabala

Bainan **atertu** du, iguzkia ere agertu da eta denen buru denak molde gaitzean joan dira. Herria

Atertu du pixka batean eta goxo da larruazalean sentitzea eguzkiaren fereka. Aingeru Epaltza

Atertu zuen elurra, ilargi ezin ederragoa atera zen. Fernando Rey

Euria **atertu** zuela zirudien, uhinen bitsa izan behar zuen mahuketara aldizka etortzen ziren zipriztinak. Koldo Izagirre

Euriak **atertu** ziren eta ibaien indarra txikitu zen. Xabier Amuriza

19 gradu izango dira zero azpitik eta elurra **atertu** gabe. Joseba Sarrionandia

Erromatik itzuli zenean, hiritik irten zen egunean **atertu** gabe egin zuen euria. Askoren artean

Euria erruz ari zuen gainera, **atertu** gabe. Txillardegi

Zer hotzikarak, zer trenpa aldiak! Zer lanak, soinekoak ezin idorraraziz **atertu** ondoan! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Atertu egin zuen; baso eta belar usaineko haize hotz batek putzuak izurtzen zituen euriak garbitutako kaleetan. Lopez de Arana

" **Atertu** egin nahi duela dirudi", esan zuen. Bernardo Atxaga

Hasi duk, hasi duk, auskalo noiz **atertuko** duen! Pello Zabala

Euri gehiegi egin du denbora gutxian, eta ez dirudi laster **atertuko** duenik. Aitor Arana

Orduan **atertuko** du kazkabar-erauntsia eta ez da gehiago trumoirik izango, jakin dezazun Jaunarena dela mundua. Elizen arteko biblia

Ekaitza geldituko da eta kazkabar-erauntsia **atertuko**, lur osoa Jaunarena dela ikus dezazun. Jose Antonio Mujika

Izan ere, euria ari duenean, batzuetan segido samar egin ohi du, baina besteetan, makina bat aldiz **atertzen** du. Pello Zabala

Elurrak **atertu** bazuen ere, ipar-haize zorrotza zebilen, eta arin-arin abiatu ginen, lagunek aspaldi behar zuten-eta billar-aretoan. Anjel Lertxundi

Elurretik badamaio, ez du berehalakoan **atertzen**. Pello Zabala

Leihoek duela gutxi arte polita zen plaza txiki batera ematen zuten, eta haien azpian, autoen, motor burrunbatsuen harrabotsa, ez zen inoiz **atertzen**. Eskarne Mujika

Ez zen ez animaliaren ez gizon-emakumeren arrastorik inon ikusten eta, tarte batean **atertu** bazuen ere, hegazti bat ere ez zen begi-bistan agertzen. Joanes Urkixo

Izan ere, euria, tartean **atertu** bazuen ere, gogor ari zuen berriro. Juan Garzia

Hastapenean McDonalds batean sartu ginen, kafea han inon baino merkeagoa baita, eta doi bat **atertu** zuenean irten egin ginen. Patxi Zubizarreta

Euria **atertu** zuen, baina haize erauntsia gogortu. Karlos Zabala

Mara-mara esaten da, baina han zarra-zarra ari zuen elurra, **atertu** gabe, aspertu gabe, eta botatakoa ez zen urtzen. Xabier Mendiguren Elizegi

-Orain, **atertua** baitu, hobe duxu etxalde partiturik, beste uhar bat jin aitzin. Janbattitt Dirassar

Hastapenean McDonalds batean sartu ginen, kafea han inon baino merkeagoa baita, eta doi bat **atertu** zuenean irten egin ginen. Patxi Zubizarreta

Bizpahiru te-kikarakada hartu ditut haren irudi isilaren alboan, denbora emanez, lehenago edo geroago **atertuko** zuelakoan. Jon Arretxe

Ez du inorekin topo egin tunel estuan; irteeran afixa batzuei begira gelditu da, euria noiz **atertuko** zain. Urtzi Urrutikoetxea

Ezin **atertua** zuen bere oroitzapenak, adiskidantzak, ezagunekilako harremanak -Alain eta Valéry-rekin bereziki- kondatzen zituelarik. Marzel Etxehandi

2 gelditu; geldiarazi.

Atsedenik gabe, bigarren mugimenduari, andanteari, ekin zioten musikariek, eta isiltasuna ez zen **atertu** gelan, isiltasunak hantxe segitu zuen, abere zaurituak bezala kiribildua, txori arinak bezala gora eginez hegan,Ahots gogorrez gaineratu ere bai, judua itsasora bota ezean, ez zela Jainkoaren haserrea **atertuko**, ez zela haizea oihaletara itzuliko. Felipe Juaristi

Lineako bi telefonoak eta geltokiko hirurak **atertu** gabe konektatzen. Fernando Rey

Gure korrikalarien saldoa ez zen ez **atertu**, ez-eta mehatu ere. Herria

Eta usoak ezin lokartuz zeuden, urrumaka **atertu** gabe, lo zeudela erortzen ziren, beren lumek paretaren kontra jotzean egiten zuten hotsa aditzen zen. Fernando Rey

3 irud/hed

Txaloak **atertutakoan**, danbor-hotsa zabaldu zen bazterretan. Felipe Juaristi

Franco Rasettik **atertu** gabe hitz egiten zuen bazkarietan, baina betiere fisikaz, geologiaz eta koleopteroez. Fernando Rey

Gonbidatuen txalo zaparradak hiru minutu iraun du **atertu** gabe. Patxi Iturritegi

Umberto ume bat bezala ari zen barrez eta txantxetan, **atertu** gabe hizketan: [...]. Anjel Lertxundi

Okindegian izan naiz eta, herenegun gaueko hilketaz ari zen jendea zurrumurruetan **atertu** barik. Josu Landa

Ez zen ez animaliaren ez gizon-emakumeren arrastorik inon ikusten eta, tarte batean **atertu** bazuen ere, hegazti bat ere ez zen begi-bistan agertzen. Joanes Urkixo

Tabernatik irtendako liburuzaina berrehun eta berrogeita sei mila ezkatako suge honen gainean orroka ostikoka adausika zanpatu ezkilak **atertu** ezineko bozkarioan zirela. Koldo Izagirre

Handik atzera, **atertu** ezinezko zerrenda osatu zen. Jokin Urain

Itzuli nintzenean Luteziak **atertua** zuen negarra. Matías Múgica

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atertu arte (4); **atertu bazuen ere** (3); **atertu du** (9); **atertu egin du** (3); **atertu egin zuen** (9); **atertu ezinik** (3); **atertu gabe aritu** (3); **atertu zuela** (5); **atertu zuen** (10); **atertu zuenean** (4); **euria atertu gabe** (4); **ez du atertu** (3); **ez zuen atertu** (3)

atertua zuen (4); **ezin atertua** (3)

atertuko dik noizbait (3); **atertuko du** (3); **euria noiz atertuko** (4); **noiz atertuko zain** (5)

atertzeko itxurarik (3)

atertzen ez (8); **ez zuen atertzen** (7)

---

atertze *iz* euria, elurra eta kidekoak egitetik gelditzea.

Eta BACeko pareak ere xuberotarrak meneratu ditu Bidarriko plazan astelehenean, **atertzearekin**. Herria

---

atestatu *iz* delitu edo lege-hauste bat egiaztatzen duen agiri ofiziala.

Hondarribiko gaztearen heriotzaren **atestatua** Irungo Instrukzio Epaitegiaren esku utzi zuen Ertzaintzak, baina epaitegi horrek uko egin zion kasua hartzeari. Berria - Euskal Herria

Gertatutakoaren **atestatua** Fiskaltzara eta Familia Indarkeria Zerbitzuko Fiskaltzara ere bidali du Foruzaingoak. Berria - Euskal Herria

Foruzainak arduratu ziren **atestatuaz** . Berria - Ekonomia

Ertzaintzaren **atestatuak** argi esaten du kanpoan ez zela ezer gertatu, baina niri 300 euroko isuna ezarri zidaten; barruko gertaeren erantzule egin ninduten, nik haiekin zerikusirik izan ez nuen arren. Berria - Harian

Gertaera horien harira Ertzaintzak bost herritarren kontra **atestatua** ireki zuen. Berria - Euskal Herria

Gisako **atestatuetan** gertatu ohi denez, ñabardura morbidoak erantsi dituzte lekukoek. Joxean Agirre

Berriro ere hiru euskal gazte espetxeratu dituzte, inongo frogarik gabe, susmoetan oinarritutako **atestatu** lotsagarri batekin eta leporatzen dizkieten gertakizun konkretuak agertu gabe. Berria - Euskal Herria

---

ateta *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)* *iz* ezkaratza.

Biharamunean itzuli ginenean, batak esne apur bat, besteak ura edo bestelako mizkeriaren bat generamatzala, **atetara** sartu eta zer edo zer biguna zapaldu nuen, oinpean piku heldu baten moduan plast egin eta galtzerdi zuriak odolez pikardatuta utzi zizkidana. ETC-literatura, saiakera

Ez zion **atetak** , baina, uda betean eskaini ohi zion freskurarik ekarri, beroena ere joan ohi da-eta irail hondarrerako hemen. ETC-literatura, saiakera

Piltzarreri su eman eta bere girgileriarekin gorte gibeleko **atetarik** karrikara haizatu Medor mutur luzea! ETC-literatura, saiakera

Korridore hutsetan bueltaka nenbilela amets egin nuen, alderik alde zabalik zeuden ezin konta ahala **atetatik** gela hutsetara sartzen nintzela, baina geletan ez zegoen inor. ETC-literatura, saiakera

Haren autoa oraindik garajearen **atetan** zegoen. ETC-literatura, saiakera

Atetan utzi zuen odol arrastoagatik, Ofelia eskaileretan behera abiatu zen, eta antza denez atezain automatikoko tinbreak jo ostean, zabalik aurkitu zuen aurreneko lokalean babestu zen, bere etxetik metro gutxira dagoen italiar jatetxean. ETC-literatura, saiakera

Apezen batek bortxatu eta, bederatzi hilabete isilpekoren burura, herriko neska ederren batek elizako **atetan** gauez utzia. ETC-literatura, saiakera

Bertzalde, elizako **atetan** larunbat 25an eta igande 26an, mezatik lekora urte guziz bezala, horiek guziak gose direnen soleitzeko. ETC-prentsa

Leen emaztek elizako **atetan** mantalina ematen tzuten ta meza denboa guzian buruan atxikitzen 'lehen emazteek elizako ateetan mantelina jartzen zuten eta meza denbora guztian buruan atxikitzen'. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

atetila *iz* ate txikia. ik **atexka**.

Ezker-eskuin, **atetilak** zeuden, kandaduekin gakotuak. Bernardo Atxaga

Angurriaren alboek (zalgurdiaren **atetilak** alegia) behialako pintura horiaren arrastoak zituzten oraindik, eta oso txarto ixten ziren, zeren eskutokiak eta sarrailak oso egoera kaxkarrean baitzeuden, hala-hola sokaz loturik. Jose Morales

Atetila ireki zuen, eta barnean zegoen gizonari tiro bat bota zion. Elena Touyarou

Lekaioak, denborarik galdu gabe, **atetila** danbateko batez itxi, oin-oholak gora bildu, eta, kalesaren atzealdeko uhalari helduta, gidariari oihukatu zion: "Aurrera!". Jose Morales

Bukatu zutenean, ukuiluak ilunbetan jarraitzen zuen, hain zuzen ere leiho guztietako egurrezko **atetilak** kanpotik iltzatuta zeudelako denak. Koldo Biguri

---

atetu, ate(tu), atetzen da/du *ad* pilatu.

Edozein otordutan, inork janari muzin egindakoan, gurasoei askotan adituak ditut etxean: "Onak zaute zuek, belea egondutako lekun bizia **atetzeko** !". Patziku Perurena

---

atetxo 1 *iz* ate txikia.

Ateondo handi bat zeharkatu, eta bigungarriz estalitako **atetxo** baten aurrean gelditu ziren. Jon Muñoz

Gero **atetxo** behere batera lagundu, eta hatzak ferekatu zizkion: Juan Garzia

Atetxoa itxi eta eskuak garbitu zituen mantalaren ertzaz. Anjel Lertxundi

Nabari zitzaion zerbait egin nahi zuela, eta, izan ere, giltzak hartu, armairura hurbildu, eta, **atetxoa** zabaldurik, puska luze batean bila aritu zen edalontzi eta katiluen artean, eta azkenean esan zuen: Jose Morales

Haren masa astunaren oinetan, **atetxo** bat zegoen. Alberto Ladron Arana

Beheko aldean, berriz, lasto zikina aldatzeko erabiliko zuten **atetxoaren** alboan, aska hutsa ageri zen. Joxemari Urteaga

Apopilo-etxeko leiho guztiak zabalik zeuden eta farfailazko errezelak kale aldera sabeltzen ziren, emeki, leiho-**atetxo** goratuen azpitik. Irene Aldasoro

Ate ireki guztiak bizkor zeharkatu ondoren, **atetxo** baten aurrean gelditu eta joka hasten zen, astiro, luze, kolpeen artean tarte betiberdinak utziz. Jose Morales

Itsumustuan egin nuen, Florak botikinaren **atetxoa** zabaltzen zuen une berean, eta hain izan nuen zorte txarra, non begi ondoan jo ninduen. Ramon Saizarbitoria

Sabaitik zintzilik zegoen kaiola baten **atetxoa** ireki eta, eskua barruan, zailtasunik gabe heldu zion hegalditxo bizian jiraka zebilen txoriari. Josetxo Azkona

Bat-batean **atetxo** bat zabaldu zen oholtzaren atzealdean, eta agure bat azaldu zen, oso dotore jantzia, eta haren ondoren bi laguntzaile gazte. Josu Zabaleta

2 *leiho-atetxo*

Apopilo-etxeko leiho guztiak zabalik zeuden eta farfailazko errezelak kale aldera sabeltzen ziren, emeki, **leiho-atetxo** goratuen azpitik. Irene Aldasoro

---

atetzar *iz adkor* ate handia.

Bazeukan **atetzar** bat giltzarrapo astun batez itxia, baina aise sar zitekeen atearen bi aldeetan zeuden zuloetatik. Koro Navarro

Ordurako, sarrerako guardiek itxia zuten **atetzarra** , eta burdin-ziriak eta gainerako euskarriak beren zuloetan egokitzen zihardute. Pedro Alberdi

Alsina kaleko **atetzarraren** aurrean gurdi bat zain zegoen, hiru zaldiz. Juan Garzia

Abeltzainak, lana amaiturik, abeletxeetako **atetzarren** alboan zeuden, esne-lapikoen eta arrain-zoparako gonbitaren zain. Jose Morales

Irribarrez ari zen, ez baitzuen etxe barrutik **atetzarra** irekitzeko batere asmorik. Aitor Arana

Segurtasun neurriak, besteren artean pribatasuna zaintzeko neurriak, koartelekoak bezain zorrotzak ziren, eta zaintzaileen baimena jaso gabe ez zegoen **atetzarra** zeharkatzerik. Migel Angel Mintegi

Atetzarrak zabaltzean karranka egin orduko, labankada batek soka tenkatua eteten duen legez, Guardia Zibilaren etxe aurrean bildutako jende andanak amorrua askatu zuen. Jon Maia

Poz-pozik itzuli ginen, ez edanak, baina bai zizpatuak, hoteleraino (Via Veneto): kristalezko **atetzarra** zabaldu eta alabastrozko hallean berehalaxe eskuratzen dizkizute zure gelako giltzak, zuk zeuk inskribatu bezalaxe izendatuak. Joxe Austin Arrieta

Arratsaldero bezala, gizonezko bat eliz aurreko burdinazko **atetzarra** ixten ari zen, drogazaleek gaua eliz atarian pasa ez zezaten. Anjel Lertxundi

Aurreko **atetzarrak** kolpe zatar batez toperaino iritsia zela abisatu artean, ondorengo atearen operazioa ez zen hasten. Txillardegi

Atetzar madarikatu hura igarota, guk donostiarrok ere: "Libertatea, zoin den eder" kantatzen genuen. Txillardegi

Burdinazko **atetzar** kirrinkaria giltza handi beltz batez ireki ondoren, Justinari sartzeko agindu zion sarjentuak, buru-makur eta esku-keinu gehiegizko eta desegokiz. Felipe Juaristi

Gazte jendea andanan sartu eta irteten zen auskalo noizko eta zein estilotako **atetzar** hartatik. Unai Iturriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
atetzarra zabaldu (3)
atetzarraren aurrean (3); **burdinazko atetzarraren** (3)

---

atexka *iz iz* ate txikia. ik **atetila**.

Bidaiarien bagoiak aspaldi zerbitzutik kanpo gelditu zen modelo batekoak ziren, konpartimentuek bi **atexka** zituzten alde banatan eta bagoiko pareta osoan zehar ointoki luze bat. Fernando Rey

Nik segitzen nuen jakin gabe ez ote zen broma bat, **atexka** ireki, lehenbiziko maila jaitsi eta gero pausokapausoka gero eta beherago, zango bat luzatu eta bidezidorrera erori nintzen, kosakoen moduan dantzatuko banintz bezala. Fernando Rey

Goitik, irakaslearen etxeko **atexka** ostikoka botatzen ari zirela adierazten zuten danbadak belarriratu zitzaizkigun. Alberto Ladron Arana

Alemanek hain modu basatian eraso egin eta poloniarrak garaitu zituztenean, geltokiko buruak usategiko **atexka** itxi zuen eta Hradecera joan baino lehenago geltokiko mutilari agindu zion Nurembergeko badget haiei guztiei lepoa bihurritzeko. Fernando Rey

---

atezain *(ETCn **12.608** agerraldi)* **1** *iz* etxe edo eraikuntza bateko sarrera zaintzen duen pertsona.

Finkako **atezainaren** laguntzarekin marrazketa-mahai bat muntatu zuen hustutako etxean, eta bertara abiatzen hasi zen egunero. Patxi Iturritegi

Bazkaldu, berriz, **atezainaren** sukaldean egiten zuen, Mariaren jaki goxoak dastatuz. Joxemari Urteaga

Atezaina esnatu nuen, baina ez zeukan giltzaren kopiarik. Koro Navarro

Urias, ordea, jauregiko ate ondoan geratu zen lotan, jaunaren **atezainekin** batera; ez zen etxera joan. Jose Antonio Mujika

Atezainak ez ditu orroak eta oihuak aditzen, ez ateari ematen zaizkion kolpeak eta ostikadak ere. Karlos Linazasoro

Alde batetik zalditegiak izaten dituzte, eta beste aldetik **atezainen** gelak, eta jarraian barruko ateak egoten dira. Santiago Iruretagoiena

Nire **atezainak** ez dio sartzera uzten, eta eri naizela jakinarazten dio: aitzineko gertaldi larria. Jon Muñoz

Atezainak langa altxatu eta sartu gara aparkalekura, jardina ederra da eta harbide bat dago aldapan gora eraikin nagusiraino. Joseba Sarrionandia

Atzeko atetik sartu ziren, ostatuko harrera-gunetik, gizon itsu batek zaintzen bainoago mugarritzen zuen espazio ilun batetik, **atezaina** lodia baitzen gorpuzkeraz. Felipe Juaristi

Holmboe buru-belarri lanean ari zela Christianiako unibertsitateko bere bulegoan, atean jo, eta gutun bat eman zion **atezainak**. Jon Muñoz

Nire **atezaina** izan zenaren letra txiki eta aldrebesa idazkera eder horri gaineratu zaio: Monika Etxebarria

Haren pertsonaiek ere, betikoak eta inoizkoak, ondo zehaztugabeko status sozial halako baten marka besterik ez dute: zalduna, errege, morroia, **atezaina**, gerlaria... Anjel Lertxundi

Joan den urtearen amaiera aldera, argitaletxe batek luxuria bekatuari buruz testu bat idazteko proposamena egin eta nik baiezkoa erantzun niola zenbait egunkaritan agertu ostean, ezezagun batek fardel txiki bat eman zion nire lantokiko **atezainari**. Karlos Zabala

Autoa kalerako irteerara iristerako, bertan zegoen **atezainak** atea zabalik zeukan, eta autoak errepidea zapaldu bezain aguro ekin zion ate erraldoia ixteari. Joxemari Iturralde

Zuzendariak, emaitzak eskuan zituela, banan-banan deitzen gintuen; maila gainditua genuela igartzen genion irakasleak keinu bat egiten zigulako, aurrena **atezainaren** aldera joateko. Juan Kruz Igerabide

Etxeko **atezainarenean** giltza bat utziko ziola, eta apartamentura igo eta han itxaroteko. Oskar Arana

-Ez dakit seguru baina, barrengo zeozer behar du, ohetik jaiki ezinik daukana -esan zion Aita **Atezainak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Mezu bat erretilu batean, **atezainak** ekarria. Koro Navarro

Atezainek berriz ere zabaldu zuten atea, eta polizi buru nagusia agertu zen alartzean. Karlos Zabala

Sarrera-txartela eskuan zuela, Alejandro **atezainaren** ondora joan, eta berbetan hasi zen berarekin. Pedro Alberdi

Atezainaren emazteak, irteeran abisu eman niolarik, itzultzekoa nintzela esango zuen, eta giltza utzi. Josu Zabaleta

Baina eraikina itxita dago eta **atezaina** joanik da. Oskar Arana

Eta batzuetan lasterka joaten ginen eskailera mehar hartara zelata egitera, baina **atezainek** laster botatzen gintuzten, debekatuta baitzegoen. Pello Lizarralde

Aurretik igaro zen alabarekin, eta aretoko ate zabaldutik begirada bizkor bat luzatuta ikusi zuen zein zen **atezainak** zereginik gabe egoteko arrazoia. Irene Aldasoro

Baina bai, **atezainak** "pasa pasa" esan digu eta barrura goaz. Pako Aristi

Nire izenarekiko etiketa oraindik hantxe zegoen, apartamentuan; baina Freddy **atezainak** ez zekien nire giltzaren berri. Joxe Austin Arrieta

Eta, iluntze partean, txakurkume maitagarri bati kontu egiten zion **atezainak**; uhal luze-luze batekin lotuta edukitzen zuen, handik iragaitean geratu eta hizketara hurbiltzen gintzaizkionean. Mirentxu Larrañaga

Atezainari deitzea jaitsi zen, ez zuen erantzuten. Joseba Urteaga

Ate bakoitza ostadarraren mutur batean dago, eta **atezainek** eskuak baino ezin dituzte erabili. Julen Gabiria

Edo diskoteka bateko **atezaina**. Aingeru Epaltza

Pare bat aldiz, urduritasunak eraginik, **atezainen** arreta jasotzen zuela iruditu zitzaion. Migel Angel Mintegi

-Zer moduz unibertsitatean? - galdetu zidan **atezainak**. Joan Mari Irigoien

Andresentzat inguruko guztiak etsaiak ziren; amaginarrebak, Ninik, haren senarrak, etxeko bizilagunek, **atezainak**... berentzat laidogarri balitz bezala ikusten zuten senar-emazte haien bizitza. Josu Zabaleta

Joxe Elosegik aurrera egin zuen hala ere, eta arraiki agurtu zuen **atezainetatik** handienak. Hasier Etxeberria

2 *iz* futbolean eta kideko kiroletan, atea zaintzen duen jokalaria.

Azken jardunaldietan okerrak egin ditu, baina horrelakoa da **atezainaren** bizitza. Berria - Kirola

Atezainak zutoin batera edo bestera hurbildu ohi dira baloia bederatzi metroan dagoenean. Berria - Kirola

Atezainari atzo egindako autopsiaren arabera, aortako aneurisma batek eragin zion heriotza. Berria - Kirola

Beckenbauerri **atezainik** ez zelairatzea falta izan zaio, golak jaso dituztelako. Berria - Kirola

Sekulako gola sartu zian -Boca Juniorsen kontra, oker ez banago-, zelaia alderik alde zeharkatu, eta bidera irten zitzaizkiòn aurkari guztiak hankaz gora utzi ondoren, **atezaina** bera ere bai... baita arbitroa eta marrazainak ere, hortik atera kontuak! Joan Mari Irigoien

Hogei arte kontatzera ez nintzen iritsiko, eta "¿estás ahí?" berriro ere hariaz bestaldean entzun nuenean, zentzumen guztiak erne jarrita nengoen -penalti bat gelditzeko prestatzen den **atezaina** bezala- testua hitzez hitz jasotzeko. Ramon Saizarbitoria

Malagaren aurkako partida batean, berdinduta zeudela, ate aurrera bakar-bakarrik iritsi zen Zarra; baloiari barrura bultza besterik ez zuela, ohartu zen **atezaina** ondoan zegoela min harturik. Joseba Zulaika

Baloia hartu zuen, atzelari bat gainditu, beste bati baloia hankartetik pasatu eta gero, **atezainak** orkatilatik heldu ote zion ziur ez bazegoen ere, lurrera jausi zen. Aritz Gorrotxategi

Hori dela eta irabazi ditu hainbeste ipuin-sariketa (ez da alferrik koadrilako idazlerik publikatuena), eta horregatik izan da hainbeste urtetan Zarauzko eskubaloi taldeko **atezainik** onena, número uno. Xabier Etxabe

Konfiantza hartu ahala, bakoitzaren izaera eta zaletasunak azalduz joan dira: Mehdi **atezaina** da unibertsitateko futbol-taldean, whiskia gustatzen zaio eta Irango bizimodua ez. Jon Arretxe

Hau -esaten zien entrenatzaileak taldeko berriei, aurkezpen egunean, **atezaina** seinalatuz- zuen aita da; beste hauek -erdiko atzelaria eta liberoa- zuen ama eta zuen izeba; hango hura -hori erdiko aurrelaria zen- seme nagusia. Jon Alonso

3 (izenondoekin)

Atari ilun, bi orrikoaren aurrean, **atezain** uniformatu sendo-sendoa zegoen zutik, beroki luze, hondar-koloreko bat soinean, eta beroagatik ere hartz larruzko txano beltza buruan. Matías Múgica

Izotz zurian barrena, kasko gorriko jokalari bat **atezain** maskaraturantz limurtzen zen biziki. Bernardo Atxaga

Izenpetzaileetan, Athletic-en izenean Andoni Zubizarreta **atezain** famatua ere hor zagon. Herria

Atezain irundarra, halere, baikor da, eta taldeak mailari eutsiko diola uste du. Berria - Kirola

Lapurtarrak aukera baliatu zuen Mindimba **atezain** bikainari garaipeneko gola sartu zion (6-5). Berria - Kirola

"**Atezain** titularra izan naitekeela erakutsi dut", esan du. Berria - Kirola

Aldiz, Zdrahalek, Moliak eta Bounoure **atezain** ordezkoak lehenengoz jokatu ahal ukan zuten. Berria - Kirola

Irteera, ahantzi baitzait zuri aipatzea, lorategiko ate ttipitik behar zuen egin: aski zuen argi azkorriaren zain egotea, **atezain** zorrotzak ez zuen hitzik erranen. Jon Muñoz

Bi **atezain** beltz eta handikotek gordetzen zuten atearen atzetik, ke lodi eta ugaria irteten zen atariko bonbilla kolorezkoen argitara. Hasier Etxeberria

Bularra goitik beheraino dominaz josirik daukan **atezain** on, atsegin, adeitsu, begiurdin horrek berak bere eskuez irekitzen du ate izugarria; ezer ez dakielako irekitzen du. Jose Morales

-Noski, **atezain** bikaina da Wood! - esan zion Lee Jordanek jendeari, Flint Hooch andrearen txilibitu-hotsaren zain zegoela -. Iñaki Mendiguren

Keegan **atezain** zaharrarekin hizketan nengoen behin. Irene Aldasoro

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lafuentek ondo erantzun zion **atezain** aldaketari, eta Ligan jokatzeko moduan dagoela erakutsi zuen. Berria - Kirola

Hiru hitz adeitsu **atezain**-andreari. Joseba Urteaga

-Pentsa noraino lagundu zidaten, anai Benitoren bidez, lasalletarrek, **atezain** kargua ere eskaini zidatean, goizetan. Joan Mari Irigoien

Eta gerra amaitu ondoren, bertan gelditu zen, "ex-combatiente" gisa "Arbitrios"en **atezain** postua eskaini ziotelako. Ramon Saizarbitoria

Inguratutakoan, Rekexok ikusi zuen sarreran, burdinazko ate erraldoi baten beste aldetik, zain zeukatela gizonezko bat, agian **atezain** lanetan aritzen zena. Joxemari Iturralde

5 *atezain automatiko*

Ni etxetik bidali eta lehenbiziko bi hilabeteetan, telefonoz agertzen zidan adeitasuna lurrindurik gelditzen zen bion etxea izandakoaren **atezain automatikoaz** baliatzen nintzelarik. Aingeru Epaltza

Atezain automatikoek ez dute beti ondo funtzionatzen, pentsatu nuen, eta azken ahalegin bat egingo nuen. Iban Zaldua

Dudatan gelditu zen atari ondoan, **atezain automatikoari** begira zer egin ez zekiela, txirrina sakatu edo ez. Migel Angel Mintegi

Jabeek gelaka alokatu diete pisua hainbat etorkin magrebdarrei, eta askotan gertatzen da, esaterako, goizeko ordu txikietan, giltzak ahaztuta, etorkinen batek bizilagunak esnatzea **atezain automatikoa** jo eta jo. Iban Zaldua

Biltegi nautikotik biodendetarik garajeetarik **atezain automatikodun** ezkaratzetarik jalgi zarete denak ateetara leihoetara espaloira, eta honantzako norabidean zatoztenak baztertzen baldin bazarete ez da bide egiteagatik, ikuspuntua hartzeagatik egiten duzue albora. Koldo Izagirre

Egia esatera, ez zitzaidan sobera kostatu haren telefono zenbakia zein zen jakitea: atariko **atezain automatikoan** bigarren eskuinari zegokion izenari erreparatu, eta telefono listinera egokitu besterik ez: Piarres Bordagarai, 59 45 86 21. Patxi Zubizarreta

Atetan utzi zuen odol arrastoagatik, Ofelia eskaileretan behera abiatu zen, eta antza denez **atezain automatikoko** tinbreak jo ostean, zabalik aurkitu zuen aurreneko lokalean babestu zen, bere etxetik metro gutxira dagoen italiar jatetxean. Iñigo Aranbarri

Segurtasun sistema aldatua zeukaten eta, lehengo **atezain automatikoaren** tokian, zeinek bizilagunekin hitz egiten uzten zuen, zenbaki eta letradun panel bat bakarrik ikusten zen orain, mikrofonorik gabea. Bernardo Atxaga

6 *futboleko atezain*

Futboleko atezainen beste jauzi bat, eta orduan irristan joan nintzen ni ere zola leunean, irrist egiten nuen. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atezain bat (17); **atezain batek** (3); **atezain baten** (3); **atezain bati** (3); **atezain bera** (3); **atezain beteranoak** (3); **atezain bikaina** (4); **atezain gaztea** (3); **atezain gisa** (3); **atezain kroaziarrak** (3); **atezain kubatarraren** (3); **atezain lanetan** (3); **atezain nafarrak** (3); **atezain ohi** (3); **atezain ohia** (3); **atezain ohiak** (5); **atezain on** (7); **atezain ona** (9); **atezain oso** (3); **atezain postua** (4); **atezain postuan** (5); **atezain titularra** (9); **atezain titularrak** (3); **beste atezain bat** (3); **bi atezain** (7); **errusiako atezain** (3); **hiru atezain** (6); **ordezko atezain** (4); **osasunako atezain** (5); **realeko atezain** (3); **taldeko atezain** (5)

atezaina bezala (3); **atezaina da** (22); **atezaina du** (3); **atezaina izan** (16); **atezaina izan ezik** (3); **atezaina izan zen** (3); **atezaina izango** (6); **atezaina kendu** (5); **atezaina zen** (4); **athleticeko atezaina** (7); **bigarren atezaina** (7); **etorkizuneko atezaina** (3); **hirugarren atezaina** (4); **juantxo elia atezaina** (3); **ordezko atezaina** (5); **osasunako atezaina** (13); **realeko atezaina** (5); **ricardo atezaina** (3); **taldeko atezaina** (6);zaina (7); **zen atezaina** (11); **zuen atezaina** (7)

atezainak berak (4); **atezainak esan** (5); **atezainak geldiketa** (4); **athleticeko atezainak** (4); **bartzelonako atezainak** (3); **egin zuen atezainak** (3); **taldeko atezainak** (5)

atezainaren aurrean (11); **atezainaren gainetik** (4); **atezainaren heriotzaren** (3); **atezainaren huts** (3); **atezainaren inguruan** (4); **atezainaren lan** (3); **atezainaren lana** (9); **atezainaren ondotik** (3); **atezainaren seme** (4)

atezainekin lan (3)

atezainen artean (3); **atezainen entrenatzaile** (4); **atezainen entrenatzailea** (6); **atezainen entrenatzaileak** (3)

atezainetako bat (3)

atezainik gabe (3); **atezainik onena** (4)

---

atezaindari *iz* atezaina.

Hala ikusi omen zuen **atezaindariak** alde egiten. Joxemari Iturralde

---

atezaindegi *iz* atezaina egoten den tokia.

Saget andereñoa aspalditik joaten zen asteazken arratsalde guztietan **atezaindegira** kafea hartzera, eta adiskidetasun are handiagoak batu zituen bi andreak, hegazti saltzailea etxe hartara aldatu zenean. Karlos Zabala

Atari bat hautatu berria nuen, baita, **atezaindegi** estuko emakumeari egunon erranda, igogailuz aupatu ere bigarren solairuraino. Aingeru Epaltza

Idatzizko harreman horrezaz gain, lauzpabost urtean behin itzultzen zen anai Benito etxera bisitan, eta orduan ere ez zen amonaz ahazten, auzoko lasalletarren eskolako **atezaindegira** espresuki joaten baitzitzaion. Joan Mari Irigoien

---

atezaintza *iz* atezainaren lanbidea.

Hoteleko **atezaintzan** gure mutil belarriluzea zegoen. Edorta Jimenez

Baina hura etorri baino lehen agertu zen **atezaintzako** mutila. Edorta Jimenez

Telefonoa berriro altxatu eta **atezaintzaren** erantzunaren zain lotu nintzen. Edorta Jimenez

atezango *iz* leiho edo ate bateko arkuari eusten dioten elementu bertikaletako bakoitza. ik **janba**.

Eta bitartean kanpoan utzi duen maitale negartiak atalburua lorez eta girlandaz jazten du eta **atezango** harroak lurrintzen, eta gizarajoak ateorrietan musuak inkaturik uzten ditu Xabier Amuriza

Filch jarraika zuten ala ez ikusteko ere atzera begiratu gabe... **atezangoan** biratu eta korridore batean aurrera joan ziren trostan, eta gero beste batean, Harry buru zela eta ideiarik gabe ez non zeuden, ez nora zihoazen. Iñaki Mendiguren

Atezangoko botoi zuri bat sakatu zuen. Lopez de Arana

Mezuzah (hebreera: "**atezangoa**"). Koro Navarro

---

atezatu, ateza, atezatzen **1** tenkatu.

Zaldi bizkorrak, euren gorputza lo datzala ere, izerditzen eta arnasestu etengabean ikusiko dituzu, giharre guztiak **atezatuz**, palmadarraren bila edo ukuilu irekietatik lasterka oldartzean bezala. Xabier Amuriza

Musikala ez den tresna bat, hortzekin sokei **atezaturik** eutsiz eta behatzekin kentzen saiatuz bezala jotzen dena. Xabier Olarra

2 (era burutua izenondo gisa)

Halaxe ageri zen Sabeth nire gainean, edo nire aldamenean, hobeto esanda: lehenik bere espartinak, gero bere aztal biluziak, eta izterrak, ikuspegi murriztu hartan ere lirain askoak, ondoren bere pelbis galtza bakero **atezatuetan** hertsia; esku biak patriketan sartuak, zutik. Joxe Austin Arrieta

---

ateztar *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *izlag/iz* Atezkoa, Atetzi dagokiona; Atezko biztanlea.

"Antxorena" abizena "Antxorena" otsagabiar leku-izenarekin (Nafarroa Garaia) edo "Antxorenako borda" **ateztar** leku-izenarekin (Eritze Eritzegoiti, Nafarroa Garaia) lotuta egon daiteke. ETC-entziklopedia

---

atezu **1** *iz* teinkatasuna, larrialdia. ik **tentsio**.

Besteek askotariko gauzetan ziharduten: batzuk **atezu** larrian ari ziren lanean, nahiz txistuka aritu alegia lasai eta aise, nor bere "Hylo" partikularen xerka buru-belarri. Juan Garzia

Estiloaren bilakaerarik ez dago - **atezutik** ihes egitearren esan zuela uste dut. Edorta Jimenez

Senaren **atezuak** ur bedeinkatuaren pontean hatz-puntak sartzera eraman zuen Jose, aitaren egiteko. Anjel Lertxundi

2 (adizlagun gisa)

Adi eta **atezu** ibili, beraz, inguru hauetako egun dontsu tenporetako horietan. Pello Zabala

Atezu eta erne, larunbat osoan ere. Pello Zabala

Baserriaren inguruko soro eta barruti, txaradi eta baso, azienda eta artalde, oiloetxe eta ukuilu... egongo ez zen ba, **atezu** eta ernai egoteko obligazio eta enpeinurik! Pello Zabala

3 atezuan *adlag* erne.

Alemaniatik urrun nengoen; teorian behintzat, ez nuen zertan kezkaturik, baina nire egoera kontuan hartu behar etengabeak **atezuan** nindukan baita horditu itxurako gizakote batekin hitz egiterakoan ere. Anjel Lertxundi

Urteak egin ditiat abagunearen zain, nire gaitasuna frogatuko zuen hilketa baten **atezuan**, eta hara! Joxean Agirre

Han geratu nintzen, **atezuan**, burua hormaren kontra, begiak hostailaren ilunpetarantz zabalik. Josu Zabaleta

Sedukzio estrategia, ahoratu zaio ia Gabini, eta une horretantxe **atezuan** sentitu du bere burua. Iñaki Iñurrieta

4 ***atezuan bizi***

Atezuan bizi beharra dago hitzekin, beti berritzen, beti aldatzen ari baitira, itsasoa ere beti desberdina den moduan bere betiko itxurapean: Anjel Lertxundi

Hori irakurri zuenetik, artista **atezuan bizi** da noiz sentituko bere baitan Mendebaldarrek hain ohikoa duten indar kementsu baina kaskarin hori, noiz izango presa gazte baina helgabe hori... Berria - Kultura

Tulunbiotik **atezuan bizi** gara, begiak zorrotz, ea non aurkituko (baina sumatze hutsarekin ere nahikoa da) lehen flakezia arrastoa, estreinako ahuldadea. Karlos Linazasoro

5 ***atezuan egon***

Albert Matsonek eta bere emazteak esperoan sumatzen zituzten ahaideak, **atezuan dagoen** zelatariaren egonarri itxaropentsuaz, euren heriotzako orduaren alde otoika. Mirentxu Larrañaga

Andereñoak ez du xehetasunik galtzen, **atezuan dago** beti bezala. Anjel Lertxundi

Pertsonalki lapurtzea gustatzen zait; leku egokira joan, **atezuan egon**, arbola bat edo espia bat edo aztore bat izan, eta joan badoan musua harrapatu, oroimen baten muin urdin baino ez dena. Karlos Linazasoro

Atezuan egon arren, txirrinak asaldatu egin ninduen. Joxean Agirre

Inbidia madarikatua, eta madarikatuak begien bistara agertzen den edozein emeri heltzeko **atezuan dauden** zezenak ere. Fernando Rey

Susmo antzeko bat zen: basurdea **atezuan zegoela**, nire erreakzioaren zain, baina hatz haiek elkar ukitzen zuten egunean batak bestea ukitzeko seinalea izango zela, edo ordotsak urrixaren gainera salto egitekoa bestela. Xabier Mendiguren Elizegi

Alazne **atezuan zegoela** iruditu zitzaion mutilari. Fernando Morillo

Agramondarra, ordea, **atezuan dago**. Anjel Lertxundi

Bela-bizkarretan **atezuan zagok** haizea, eta zain dauzkak. Juan Garzia

6 ***atezuan ibili***

Landako belarra gizentzen ote zihoan, ukuilukoentzat **atezu zebilen** bitartean, etxekoandreak bazuen zeregina ganbaran edo etxebarruan. Pello Zabala

Neskak txabolan beheko surik ote zegoen galdetu behar zuen, horixe zen-eta bere kezka nagusia, baina elurra botatzen hasi duenetik hotzagatik nahikoa kexatu dela iruditu zaio, eta arduratsu azaldu nahi izan du lagunaren begietara, hura bezala erne eta **atezuan dabilela** erakuste aldera. Jokin Muñoz

7 ***atezuan jarri***

Ez ninduen harrotu, inarrosi baizik, eta **atezuan jarri**. Anjel Lertxundi

Gainerako soinu arruntekiko ezberdina zirudien soinu batek **atezuan jarri** zituen biak. Harkaitz Cano

Gauza, zain baitzegoen, **atezuan jarri** da, gainera etorri zait, nire baitara isurtzen da, hartaz betea nago. Monika Etxebarria

Baina ene baitako mintzoak **atezu jarri** ninduen; eta, ahots txikiak emandako argibideak zuhurki jarraitzera deliberatu nintzen. Karlos Linazasoro

Musikak kulunkan ninderaman, egonezinez, irrika gero eta sutsuago zen: neure burua kontrolatu behar izan nuen, **atezuan jarri**, hain zen bortitza nire ezpainak zure esku maitekorrean paratzeko gogoa. Eduardo Matauko

Alizia **atezuan jarri** da, eta urduriaren urduriaz alfonbraren gainera erori zaio kikarakoa. Patxi Iturritegi

Ohartu orduko, gitarra mafrunditu batek **atezuan jarri** ninduen, eta newyorktarrak listu egin zidan bozgorailu beltzetik: Aingeru Epaltza

8 ***kirioak atezuan*** *adlag* kirioak airean, kirioak datnzan.

Elkarrizketa bitartean **kirioak** atezuan egon da. Jon Alonso

· On Camillok **atezuan** zeuzkan **kirio** guztiak. Koldo Biguri

---

atharraztar *izlag/iz* Atharratzekoa, Atharratzeri dagokiona; Atharratzeko biztanlea.

Txundigarriagoak egin zitzaizkidan **atharraztarraren** beraren lanak. Aingeru Epaltza

Halaber Dominique Hastoy **atharraztarrak** hartuko du Bouillon-en alkia, honek jakinarazi zuela uzten zuela bere kargua. Herria

---

athleticzale *izond/iz* Athletic-aren zalea dena.

Athleticzale guztiak bihotzekoaren atarian zeudenean, epaileak baliorik gabe utzi zion gola Iraolari. Berria - Kirola

Familia berean **athleticzale** eta realzaleak aurkitzea ohikoa da.Niri futbola ez zait interesatzen, baina banekien nire etxe ondoko taberna izugarri **Athleticzale** batean apustuak egiten zirela, eta haietako batera joan nintzen hauteskunde porrako diruarekin; zer esanik ez, tabernan ere irribarre zabal batez onartu zuten nire iragarpena. Berria - Kirola

Dauden Ibañez ere **athleticzale** egin zen atzo. Berria - Kirola

Altzako bi familiaren inguruko kontuak aletuko ditu nobela horretan: **Athleticzale** amorratua bata; Realzale porrokatua bestea. Berria - Kultura

---

atija *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* dominstikua.

[...] baserritar (ez nekazari, laborari), baso (ez oihan), bertan, bertatik, bertako sortakoak (ez berean, beretik, bereko...), bi beti (ez bi eta biga), bidali (ez igorri), dominstiko (ez **atija**, usin), eskerrak! ETC-literatura, saiakera

---

atikar *izlag/iz* Atikakoa, Atikari dagokiona; Atikako biztanlea.

Zeru argitsuaren azpiko haurrak, klarutasun **atikarreko** izpirituak. Joxe Azurmendi

---

atiko *iz* eraikin bateko azken pisua.

Ez bazara **atiko** batean bizi izan, haizeak nolako indarra duen ez duzu jakingo. Koro Navarro

Eman zain edo komunikatzen ari diren telefonoek: zenbat metro koadro dituen apartamentuak, **atiko** edo soto batean ote dagoen telefonoa, argiak piztuta edo itzalita ote dauden. Harkaitz Cano

Ate joka hasi zen bizilagunen etxeetan, baina inork ez zion sartzen utzi, eta, hala, **atikoraino** heldu zen. Koro Navarro

Apartamentua edota bistadun **atikoa**, inmobiliariakoak deitzen zion moduan. Joxemari Iturralde

Bost solairu, beheko beste pisu bat, bi soto, **atikoa** eta aparkalekua. Berria - Euskal Herria

Arratsean, egun osoan lanean aritu ondoren, elkarrekin joango dira afaltzera, edo picnic bat egingo dute **atikoan**. Xabier Olarra

---

atipiko 1 *izond* ezohikoa.

Figura guztiak jarriak genituen: San Jose, Ama Birjina eta haurra; behia eta astoa; erregeak eta artzainak; baita aingeru **atipiko** bat ere, estalpearen gainean. Joan Mari Irigoien

Futbolari **atipikoa** izan naiz. Joan Mari Irigoien

Nazio mailako proposamena da, **atipikoa** eta handi nahia. Berria - Euskal Herria

Interesgarria zen egokiera, baina baita **atipikoa** ere: aldez bakarrik zuen antza gaizkina epailearen aurrean gertatzen denekoarekin. Juan Garzia

Eduardoren gutun gozo eta argi hori, bururen buru neure egiten nuenez, eta ez argitaratzeko inolako grabedaderik sumatzen ez nionez, euskaraz **atipikoa** den umore eder zentzagarria baizik Larru arraseko ihardukiak nola ekidin asmatzen hasi nintzen: erabat **atipikoa** eta apatikoa, beti sinpatikoa egonez noski, sozietatean agertzearren zergatik ez nuen nik ere temesta hartuko? Patziku Perurena

2 ***depresio atipiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Depresio atipikoa depresio endogenoaz bestelako sintomak dituen depresioa da. Antsietatea da sintoma nagusia, eta, harekin batera, pisuaren eta gosearen gorakada, hipersomnia eta nekea agertu ohi dira. ETC-entziklopedia

---

atitxatu, atitxa, atitxatzen du *ad* sugarra eragin.

Pierra so geratu zen: han, euri trebeskariak teilatuak eta loiroa astintzen zituela, buhame taldeak sua **atitxatu** zuen. Itxaro Borda

Atitxatzen gure mina. Herria

---

atlante *iz* izaki mitologikoa, Atlantidako biztanlea.

Gizonok mendi horretatik dute beren izena: **atlanteak**. Patziku Perurena

---

atlantiar 1 *izlag/izond* Atlantikoari eta honek bustitzen dituen lurraldeei dagokiena. ik **atlantiko**.

Baroi alemanek eta Baltikoko probintzietako bourgeoisie-ak beren kopuruarekin proportziorik gabeko eragina zertu arren Errusiako bizitzan, **atlantiar** herrien eragina, berau hartzeko Errusiako gobernu inperialak berariaz zabaldu zituen portuetatik sartu zena, askoz kontuan hartzekoagoa izan zen. Iñaki Mendiguren

Oroitu nintzen nola Irati ibaia, uste dugularik berdin gure mendietan sorturik **Atlantiar** Ozeanora buruz doala, bidexendra bat harturik edo, Mediterranioara doala aitzitik. Piarres Aintziart

Ozeano Barearen ertzeko lurrak emankor eta garrantzitsuak ziren Perun, baina ez **atlantiar** itsasertzekoak Mexikon. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko munduaren gidaritza italiarrengandik hartua zuten **atlantiar** kostako itsas herriak izan ziren. Iñaki Mendiguren

1941ean ere, Roosevelt presidenteari ez baitzitzaion burutu giza askatasun axiomatikoen kopurua, bere **Atlantiar** Gutunean ezarria, lautik bostera gehitzea, bertan gurasoek familiaren tamaina erabakitzeko duten eskubide sakratua argi eta garbi ipiniz. Iñaki Mendiguren

Bertze kidetasun bat, ez munta gutikoa, hiri **atlantiarrarekin**: egia baldin bada lisboarsak Europako hiriburuetako emakumerik zatarrenak direla, itsuskeriaren infernutik atereak dirudite ostatuko parrokiano femenino bakanek. Aingeru Epaltza

Zazpi herrialdek osatzen dabe Euskal Herria eta hiru administrazioetan banatuta dagoz: Euskal Herriko Autonomi Elkartea eta Nafarroako Foru Komunitatea Estatu Espainiarrean, eta Iparraldea Estatu Frantseseko Pirineo **Atlantiarren** Departamentu barruan. Juan Luis Zabala

2 ***isurialde atlantiar*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Garai batean **isurialde atlantiar** osoa estaltzen zuten pagadi eta harizti zabalak mendi gainetara mugatu dira eta esan bezala beste konifero espezie berriek geroz eta indar handiagoa hartu dute. ETC-prentsa

Isurialde atlantiarrean baso itxiak ziren nagusi, populazio txikiagoak kultura maila primitiboagoarekin. ETC-prentsa

Urkia ezaguna dugu Euskal Herriaren iparraldean, **isurialde atlantiar** osoan, alegia. ETC-prentsa

Isurialde atlantiarrean, berriz, garai bateko polilaborantza gainbehera makalean dagoen honetan, baserri askotan oraindik lantzen diren produktu gutxien artean patata topa daiteke toki askotan. ETC-prentsa

Azken urteetako ikerketa historiko eta arkeologikoei esker badakigu sagarra (Malus domestica), Euskal Herriko **isurialde atlantiarrean** modu naturalean hazten dena, oso fruta garrantzitsua izan dela, gutxienez, Erdi Aroaz geroztik. ETC-prentsa

---

atlantiko 1 *izond* ozeano Atlantikoari eta honek bustitzen dituen lurraldeei dagokiena. ik**atlantiar**.

Goio Bluefields alboan bizi da, Josean Prinzapolkan, itsasbazter **atlantikoan** baina iparralderago. Joseba Sarrionandia

Ozeano **Atlantikoan** nabigatuz, Afrikako punturik hegoaldekoena aurkitu zuten; itsaso zabala ikusi, eta handik Ekialdeko Indietara iritsi ziren. Iñaki Iñurrieta

Bidaia jarraituz gero, Brasilen edo Venezuelan geratzeko aukera izango duzu agian, edo Nikaraguako kosta **atlantikora** itzultzeko. Joseba Sarrionandia

Iparraldean beste hirulau urte eman eta Nikaraguako kostalde **atlantikora** erbesteratu zenean aisa aurkitu zuen lana Bluefields aldean, eritasun ugari eta sendagile gutxiko itsasbazter honetan. Joseba Sarrionandia

Erromako alde haietan euskaldunik baldin badago entzuteko eta ihardesteko nor denik, hari berari eginen diogu iragan hilabeteko *La Croix* kazetan Pirinio **Atlantikoetako** fededun ezezagun batek egiten zuen galde hura bera: ea, noiz ote, Erromako Elizak uko eginen dion Vatikanoko Estatuaren egitura eta lotura zaharkituari. Piarres Xarriton

Hego **Atlantikoko** alde honetan. Karlos Zabala

2 (izen gisa)

Atlantikoa beterik balego xanpainaz, olatu distiratsuetan dabilen xanpainaz. Lopez de Arana

Zoragarria izango da, **Atlantikoan** barneratzea. Irene Aldasoro

Hats horri esker **Atlantikoa** zeharkatuko nuen, euskaldun haien akordua, haien gomuta, haien dena -haizeak hautsa legez- denboraren iraganak eroana zuela ematen zuen arren . Edorta Jimenez

Nor bere aldetik, 66 lagunek gurutzatua zuten ia **Atlantikoa** hegazkinez, baina Charles Lindberg izan zen bakarrik, eta inon ere gelditu gabe, egin zuen lehena, 1927an. Pello Salaburu

Niregandik, zerak eragin zion zirrararik handiena, Lindbergh-ek **Atlantikoa** zeharkatuz egin zuen lehen hegaldiaz (1927) ni neu pertsonalki oroitzeak, artean nik ere hogei urte bainituen. Joxe Austin Arrieta

Kasko honetarik zabal-zabala hedatzen den **Atlantikoak** arratsarekin altzairuaren kolorea hartua du. Aurelia Arkotxa

Atlantikoko ur guztia Mediterranio txipi hartan sartu nahirik. Koldo Izagirre

Horregatik sentitzen da areago **Atlantiko** eta Kantauri aldeotatik. trabesia asko egin zituen **Atlantikoan** eta hainbat ozeanotan. Pello Zabala

Liburu honek ere berehalako arrakasta izan zuen, **Atlantikoaren** alde batean zein bestean. Koro Navarro

Langabezia izugarri hazi da Mendebaldeko Europan, orobat hazi da pobretasuna **Atlantikoaren** bi aldeetan. Koro Navarro

Bazekien Europa osoaren jabe zirela naziak, baina ez zuen inolaz ere uste **Atlantikoaren** alde hartara ausartuko zirenik. Harkaitz Cano

Negu alde zabal horretan, **Atlantiko** aldetik sartzen diren fronteen eraginez, euriz aberatsa dela Galiziako mendebalea. Pello Zabala

Almadiak ere pasatzen ziren, **Atlantikoko** sargazo ilara bukaezinak bezain luzeak. Karlos Zabala

Iparraldera so dauden errekak **Atlantikora** doaz; Hegoaldekoak aldiz Mediterraniora. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

3 ***Ipar Atlantiko***

Ipar Atlantikoan "puntu estrategiko» garrantzitsua da. Berria - Mundua

Eta, arrazoi osoz, **Ipar Atlantikoko** maniobra militarrak bertan behera uzteko eskatu zuten. Patxi Iturritegi

Ipar Atlantikoko arrantzaleei buruzko dokumentala. Ramuntxo Etxeberri

Guztien gainetik nabarmen NATOk, **Ipar Atlantikoko** Tratatuaren Erakundeak, Alemaniko lurretan zeuzkan kuartelen aurka eginiko dozena bat atentatu eta Volkswagen auto enpresaren jabearen ilobetako bat hil izana. Hasier Etxeberria

NATO **Ipar Atlantikoko** Itunaren Erakundeko Jaap de Hoop Scheffer idazkari nagusiak herrialdera bihar egitekoa zuen bidaia bertan behera utzi du, protestak direla eta. Berria - Harian

g **Ipar atlantikoko** korrontea: Golkoko Korrontearen adarra da eta munduko ozeanoetako ur lasterrik indartsuenetakoa. Berria - Gaiak

4 ***izokin atlantiko***

Senpe hizketan hala entzundakoan, **izokin Atlantikoa** baino, Chinook izokina etortzen zitzaidan gogora. Hasier Etxeberria

5 ***klima atlantiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **76** agerraldi)*

Bidea ezkerraldetik hasiz gero, **klima atlantikoko** landare eta zuhaitzak daude, haltzak, urkiak eta pagoak kasu. ETC-prentsa

Bertizko mendietako landareetan, oso ongi nabari dira **klima atlantikoko** landarediko ezaugarriak. ETC-prentsa

Klima atlantikoko aldean baso trinkoa dago, harizti eta artadiez beteta. ETC-prentsa

Klima atlantiko eta mediterraneoa elkartzen dira bertan, eta horrek balio ekologiko handia ematen dio. ETC-prentsa

Errioxa Garaiak **klima atlantikoaren** eragina du, eta 24.457 hektarea mahasti daude bertan. ETC-prentsa

Zuhaitzik ohikoena pinu gorria da, baina klima mediterraneoko artea eta **klima atlantikoko** pagoak daudela azaldu du Abinek. ETC-prentsa

Klima atlantikoak berak eragina dauka. ETC-prentsa

Hain zuzen ere, **klima atlantikoa**, mediterraneoa eta alpinoa lotzen dira bertan. ETC-prentsa

7.300 km2 eskasetan **klima atlantikotik** mediterraneora igarotzen gara, erliebe korapilatsu menditsutik leun izurtutako haran zabaletara, pagadi eta hariztietatik ETC-zientzia, zuzenbidea

Burlatako klima **klima atlantikoaren** eta mediterraneoaren arteko trantsizioko klima da. ETC-entziklopedia

Europako ipar-mendebaldeko eremu guztian bezala, klima ozeaniko edo **klima atlantikoari** esker, hiriburuak negu xamurrak eta uda freskoak izateaz gain, ez du muturreko tenperaturarik jasaten. ETC-entziklopedia

6 ***Ozeano Atlantiko***

Urakan eta ekaitz tropikalen aroa amaitu da berez **Ozeano Atlantikoan**, baina haize ufadak ez dira amaitu. Berria - Gaiak

Ozeano Atlantikoak Euskal Herriko kliman zeresan handia duela gaineratu zuen: "Erresuma Batuan erabiltzen duten eredu atlantikoa erabiltzen dugu horregatik. Berria - Euskal Herria

Ozeano Atlantikotik gertu, Noirmoutier uhartean hasiko da heldu den urteko Tourra, uztailaren 2an. Berria - Kirola

Bilbokoak **Ozeano Atlantikora** begira dauden Europako portuekin dauka harreman sendoena. Berria - Ekonomia

Bitartean, mendebaldean sortua zen feniziar kolonia bat, bere sorleku izandako siriar hiria aberastasun eta boterean gainditua zuena, kristau-aroko hogeigarren mendean Mendebalde modernoak **Ozeano Atlantikoaz** bestaldean zuen "kolonia" nagusiak bere hiritarren jaioterri izandako europar estatuak gainditu zituen bezala. Iñaki Mendiguren

Portugaldarrek, **Ozeano Atlantikoan** nabigatuz, Afrikako punturik hegoaldekoena aurkitu zuten; itsaso zabala ikusi, eta handik Ekialdeko Indietara iritsi ziren. Iñaki Iñurrieta

Islandiako uharte hotzetik abiatuta, Erik Gorriak eta bere marinel ausartek **ozeano Atlantikoan** mendebaldera egin zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ozeano Atlantikoan daude. Harkaitz Cano

7 *paneka atlantiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Paneka atlantikoa ("Mallotus villosus") Osmeridae familiako itsasoko arraina da, ipar-ekialdeko Atlantikoan eta Ozeano Artikoan bizi dena. ETC-entziklopedia

8 *Pirinio Atlantiko*

Bi auzibide abiatuak baititu **Pirinio Atlantikoetako** prefetak. Berria - Ekonomia

Frantziako Iraultzak, Iparraldeko foruak kentzeaz gain, Biarno eta Ipar Euskal Herria elkartu zituen eta **Pirinio Atlantikoa** sortu. Berria - Kultura

CGT sindikatuaren ikusgarri arloko **Pirinio Atlantikoetako** adar berria da Cap 64, eta 64 kolektiboa ordezkatzen du. Berria - Kultura

Egin dituzten irudimen eta sinbolismoz jositako ekintzen artean ondorengo hauek azpimarra litezke: **Pirinio Atlantikoetako** Kontseilu orokorreko 21 eserlekuen bahitzea 2000. urtean (Euskal Departamenduaren aldeko ekintza)... Txema Ramirez de la Piscina

Hari berari eginen diogu iragan hilabeteko La Croix kazetan **Pirinio Atlantikoetako** fededun ezezagun batek egiten zuen galde hura bera. Piarres Xarriton

Pirinio Atlantikoetako Paue eta Lescarren hala egin zuten, baita Frantzia iparraldeko Amienseko eta Pariseko beste bietan ere. Berria - Ekonomia

Philippe Gregoire **Pirinio Atlantikoetako** Prefetak argibide ugari eman zituen atzo hartutako neurri sortaren inguruan. Berria - Harian

RN-10ean **Pirinio Atlantikoetako** 64 anitz ere ikus daitezke, hondartzara edo lanera bidean ilaren erdian harrapatuak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atlantiko aldeko (4); **atlantiko itsasoa** (3)

atlantikoa zeharkatu (5); **atlantikoa zeharkatzen** (4); **ozeano atlantikoa** (4)

aliantza atlantikoak (9); **kontseilu atlantikoak** (4); **pirinio atlantikoak** (6)

aliantza atlantikoan (3); **atlantikoan zehar** (7); **ozeano atlantikoan** (6)

aliantza atlantikoaren (4); **atlantikoaren alde** (4); **atlantikoaren beste aldean** (5); **atlantikoaren bi aldeetako** (3); **atlantikoaren bi aldeetan** (4); **atlantikoaren erdian** (4)

pirinio atlantikoek (5)

pirinio atlantikoen arteko (3)

atlantikoetako kontseilu nagusiak (11); **atlantikoetako kontseilu nagusiarekin** (3); **atlantikoetako kontseilu nagusiaren** (3); **atlantikoetako kontseilu nagusiko** (16); **baiona pirinio atlantikoetako** (7); **ditu pirinio atlantikoetako** (3); **du pirinio atlantikoetako** (6); **gregoire pirinio atlantikoetako** (3); **lasserre pirinio atlantikoetako** (10); **pirineo atlantikoetako kontseilu** (3); **pirinio atlantikoetako departamenduan** (5); **pirinio atlantikoetako kontseilu** (40); **pirinio atlantikoetako prefeta** (3); **pirinio atlantikoetako prefetak** (17)

pirinio atlantikoetan (12)

aliantza atlantikoko (7); **ardatz atlantikoko eskualdeen** (3); **atlantikoko ardatza** (5); **atlantikoko itunaren erakundeko** (5); **ipar atlantikoko itunaren** (7); **nato ipar atlantikoko** (5)

---

atlas 1 *iz* mapa-bilduma, bereziki liburu gisa prestatua.

Triangeluaren orria **atlasaren** gainean utzi eta eskailerak jaitsi zituen, ahalik eta arinen, ikasleak dauden etxean entziklopediak ere egoten direla eta. Joxemari Urteaga

Kardiopatien eta Garun apoplexien **Atlasa** argitaratu du Osasunerako Mundu Erakundeak, eta haren arabera, bihotzeko eta baso sistemako gaitzek garatzeko bidean diren herrietan egiten dute minik gehien . Berria - Gaiak

Atlasen bat, edo mapak dituen liburu lodi bat bederen. Lourdes Oñederra

Ez da larruazala, mamia baizik, eta haren atzean, eguratsaren aldaketarik arinenetan ere, zain urdinek ehotzen duten amarauna antzeman daiteke, **atlas** mapa baten arrastoak kalkatzeko orriaren azpian bezala. Itziar Otegi

Horrelako baten lekukotasuna jaso zen Euskaltzaindia egiten ari den Hizkuntza **Atlasean**, Bizkaiko Lekeition eta Zuberoako Pagolan. Koldo Zuazo

Azken urteetan, senarrarekin eta umeekin ibili izan naiz, eta, irakaslea naizenez, ikasmaterialak ikusi izan ditut batez ere: **atlas** berriak eta horrelakoak. Berria - Kultura

Egun guztia **atlasak** aztertzen ematen duzu, ala? Harkaitz Cano

Ezbaian hasten ziren Asiako mugak zein ote ziren eta Giua andreak De Agostini egutegi-**atlasa** erameten zion amari, erakusteko, frogak eskuan, oker zegoela. Fernando Rey

Besteak beste, Biltzarra ezin omen zen pasatu kontsulta-obrazko liburutegi bat gabe; Nierenstein, liburudenda batean lan egiten baitzuen, Justus Perthes-en **atlasak** eta hainbat entziklopedia luze-zabal lortuz joan zen. Juan Garzia

Lan handiak egiten ari da Euskaltzaindia: Mitxelenak hasitako hiztegia, gramatika, **atlasa**, onomastika, literatura, eta abar. Pello Salaburu

2 *hizkuntza atlas*

1990an toponimia lanak egiteko hainbat herritan bildu ziren inkestak; Euskaltzaindiaren **Hizkuntza Atlasa**; Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa; hainbat unibertsitatetako fondoak. Berria - Kultura

Horrelako baten lekukotasuna jaso zen Euskaltzaindia egiten ari den **Hizkuntza Atlasean**, Bizkaiko Lekeition eta Zuberoako Pagolan. Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 1 aldiz agertzen direnak)

abiatuz atlas izena (1); **arimaren atlas txiki** (1); **atlas bat** (2); **atlas bat izaten** (1); **atlas berriak** (1); **atlas catalana** (1); **atlas eta koadernoekin** (1); **atlas etnografikoa** (1); **atlas etnografikoaren** (1); **atlas etnolinguistikoa** (1); **atlas handi batera** (1); **atlas handiekin hasi** (1); **atlas historikoa** (1); **atlas mapa baten** (1); **atlas munduari eusten** (1); **atlas sentimentala** (1); **atlas txiki bat** (3); **atlas unibertsala** (1); **barandiaranen atlas etnografikoa** (1); **euskal herriko atlas** (2); **garaikideen atlas historikoa** (1); **gizakiaren arimaren atlas** (1); **gure atlas** (1); **hauei buruzko atlas** (1); **herriko atlas** (2); **herriko atlas etnografikoaren** (1); **herriko atlas etnolinguistikoa** (1); **ikerketa garaikideen atlas** (1); **klasean gure atlas** (1); **munduko atlas txiki** (1)

alfonbra munduaren atlasa (1); **askoren atlasa ikertuz** (1); **atlasa argitaratu** (2); **atlasa begiratu behar** (1); **atlasa dela ohartu** (1); **atlasa erabiliko** (1); **atlasa erameten zion** (1); **atlasa hartu apaletik** (1); **atlasa ikertuz** (1); **atlasa ireki** (1); **atlasa izeneko** (1); **atlasa izeneko txostena** (1); **errepide atlasa ireki** (1); **euskaltzaindiaren hizkuntza atlasa** (1); **garun apoplexien atlasa** (3); **herri hizkeren atlasa** (3); **herriko hizkuntz atlasa** (2); **hizkeren atlasa** (3); **hizkeren atlasa nafar** (1); **hizkuntz atlasa** (2); **hizkuntza atlasa** (1); **ingurumenari buruzko atlasa** (1); **mercator en atlasa** (1); **mintzaira askoren atlasa** (1); **mitologia atlasa** (1); **munduaren atlasa** (1); **pedrosaren mitologia atlasa** (1); **zaharkitua zuen atlasa** (1)

atlasak aztertzen (1); **atlasak osatzeko moduko** (1); **irudikatu ditu atlasak** (1)

atlasaren gainean jarri (1); **atlasaren gainean utzi** (1)

atlasari buruz (1); **hizkeren atlasari dagokionez** (1)

apalategitik harturiko atlasean (1); **atlasean daude oinarrituak** (1); **atlasean oroitzapen gandu** (1); **haurtzaroko mitologiaren atlasean** (1); **hizkuntza atlasean** (1); **koldok oparitutako atlasean** (1)

tlasek agertu ohi (1)

atlaseko bi liburuki (1)

atlasen taxukera da (1)

atlasetan ikasten (1); **atlasetan irakurtzen diren** (1)

atlasetara jo zutenak (1)

---

atleta 1 *iz* lasterketa edo jaurtikitze kiroletan edo soinketan aritzen den pertsona.

Gogora etorri zitzaidan, hala, greziarren antzinako polis haietan gizon ideala -Aron Gurievich eta beste hainbat historiagilek diotenez- **Atleta** zela, eta indarra, gorputz-garapen orekatua eta edertasun fisikoa balio gorenak zirela, edo hobeto esanda, gizarte hartako balio nagusiak. Bernardo Atxaga

Negu partean, eguraldi ona egiten duenean, pasealeku horietan entrenatzen dira **atletak**. Santiago Iruretagoiena

Atletak zazpi mailatan ariko dira: juniorretan (emakumezkoak eta gizonezkoak), promesetan (gizonezkoak), kros laburrean (emakumezkoak eta gizonezkoak) eta kros luzean (emakumezkoak eta gizonezkoak). Berria - Kirola

-Estadioetan, gorputz-jokoetan lehiatzen ziren **atletak**; plazetan, berriz, hitzezko borrokaldietan jarduten. Jon Muñoz

Atletak azken probaren aurrean bezalaxe sentitzen zen; edota soldaduak borrokari ekin aurretik bezalaxe. Migel Angel Mintegi

Hiru **atletek** iazko marka ondu zuten. Berria - Kirola

Askoz ere duinagoa izango litzateke hori honela egitea erabaki izan balitz, zeren eta garbi baitago **atletek** ariketarekin beren gorputzak egiten dituztela sendoagoak. Santiago Iruretagoiena

Atletek diziplina gogorra ezartzen diote beren buruari, eta hori, zimeltzen den koroa irabazteko; guk, ordea, zimeltzen ez dena irabazteko. Elizen arteko biblia

Orgatila deabruari segitu beharrak **atleta** baten urratsak egitera behartzen gintuen arren, tarrapatan mintzo zitzaigun, hats hartzeko etenik gabe. Aingeru Epaltza

Atleta batek zazpi bat litro oxigeno beharko lituzke 100 metroko esprintak eskatzen duen indarra egin ahal izateko. Irene Aldasoro

Imanol Uriosterengana joan naiz eta bere bulegoan aurkitu dut, telebistari begira, joko olinpikoetako **atleta** batek bere urrezko domina erakusten duela. Joseba Sarrionandia

"Baina gu ez gara **atletak**, gu normalak gara", esan zion Martinek behin. Bernardo Atxaga

Atleta, bularra aurreratuz iristen da azken ahaleginean metara, errepikatzen diren irudietan. Joseba Sarrionandia

Hala adierazi zuen atzo Paul Rios Elkarri-ko bozeramaileak Marta Mendia alturera jauziko **atletarekin** eta Aurora Beltran kantariarekin batera egindako agerraldian. Berria - Euskal Herria

Lasterraldi horrek irauten duen hamar bat segundoetan, **atletaren** birikek ezin dute bidali litro erdi bat oxigeno baino askoz gehiago odolera. Irene Aldasoro

Patxi Morentin Ardoi taldeko teknikaria, **atleten** entrenamenduaz arduratzen dena. Berria - Kirola

Atzerritar hori: ez duk **atleta** itxurarik. Juan Kruz Igerabide

Malkoen dohainik gabe, **atleta** (--=aszeta) hauetako inork ezin uki jainkoari orpoa. Patziku Perurena

Aktore lanetan hasitako **atleta** baino, **atleta** lanetan hasitako aktore itxura gehiago du. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Irakurleak, **atleta** onak bezala, abenturazale trebeak bezala, maila goragoak, edo arrisku handiagoak kausituko ditu. Lander Garro

Mugerza **atleta** bikaina izan zen: 1910eko hamarkada amaiera eta 1920ko hamarkada hasiera artean hamaika txapel irabazi zuen Euskal Herrian eta Espainian. Berria - Kirola

Etiopiako **atleta** bikaina beste balentria bat egiten saiatuko da asteburuan, Bruselan. Berria - Kirola

Atleta bikaina, gihartsua eta bizkorra. Berria - Kirola

Atleta kanpeoiak harrokeriaz goratu ditu besoak, uztai olinpikoen azpian, eta bularra aurreranzka iristen da metara. Joseba Sarrionandia

Aberatsen seme-alabak joaten ziren **atleta** kuttunei beroa ematearren txalo jotzera. Javi Cillero

Bibliaren mezua jasotzeko modua ikusi nahi nuen, nola bereganatu zuten margolariek Greziako **Atletaren** eredutik hain urrun zegoen tradizioa. Bernardo Atxaga

Euskadiko Atletismo Federazioak txapelik gabe utzi du Ardoi taldeko Mostafa Younes **atleta** marokoarra. Berria - Kirola

Bi **atleta** txinatar hil ziren herenegun, Pekingo Maratoian. Berria - Kirola

Atleta errenteriarrak ez du zorterik izan azken txapelketa garrantzitsuetan, baina Coruñan bolada txar hori amaitu nahi du. Berria - Kirola

Atleta errusiarrak prest daude inoizko lehiaketa onena egiteko . Berria - Kirola

Eta izan zitekeen, baina ez: hura ez zen **atleta** beterano bat eta hura ez zen 2012ko Joko Olinpikoetarako iragarki bat. Berria - Harian

Diru arazoengatik ez da izango eliteko **atletarik**. Berria - Kirola

Jokalariak egundoko **atletak** dira eta erakusten duten airostasuna eta jagitasuna ikusgarriak dira, pilotariak kolpea jotzeko benetan horman gora egiten baitu. Edorta Jimenez

Ez zuen, hala ere, nahi zuen arrakasta izan, **atletarik** sarituena Jesse Ovens beltza izan zelako. Pello Salaburu

Zazpi domina euskal **atletentzat** Espainiako Txapelketan. Berria - Kirola

Budapesten bi euskal **atleta** ariko dira: Marta Mendia gorako jauzilari iruindarra eta Naroa Agirre pertika jauzilari donostiarra. Berria - Kirola

Pertika jauziko finalean gailendu zen Agirre (4,30 metro) eta 100 meira Espainiako Txapelketetan urrezko domina lortu duten aurreneko euskal **atletak**. Berria - Kirola

3 irud/hed

Frantzisko Kristoren **atleta** hasi berria zen oraindik eta, bila zetozkionen mehatxuen berri entzunik eta hurbil zirela sumaturik, haien haserreari baretzeko astia eman nahian, haitzulo gorde batean ezkutatu zen. Askoren artean

Sufrimenduaren **atleta** zen Engels. Koldo Izagirre

Eta horrela, antikristoaren garai arriskutsuen aurrean **atleta** berriak prestatu ditu eta Eliza aurretiaz babestu eta indartu du. Askoren artean

Tranpak ere badira, non Hildebrando sutsua politikan eta gerragintzan nahastuta galbideratu zen baino deabruzkiago harrapatuta gera baitaiteke **atleta** espirituala. Iñaki Mendiguren

Ez ditu bildu mende laurdenez Jaungoikoaren **atletak**! Herria

4 ***atletaren oin*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Atletaren oina, 972. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atleta bikaina (5); **atleta bikainak** (4); **atleta bilbotarrak** (3); **atleta estatubatuarrak** (3); **atleta gorputza** (3); **atleta greziarrak** (3); **atleta inguru ariko** (3); **atleta nagusiak gizonezkoak** (3); **atleta onak** (3); **atleta zen** (3); **baina atleta** (5); **beste atleta** (4); **bi atleta** (7); **bi euskal atleta** (3); **errusiako atleta** (4); **euskal atleta ariko** (5); **hainbat atleta** (4); **javi conde atleta** (3); **marion jones atleta** (4); **munduko atleta** (4); **thanou atleta** (4); **x atleta** (5); **zen atleta** (3); **ziren atleta** (3); **zuen atleta** (5)

afrikako atletak ariko (3); **atletak dira** (5); **atletak ere** (3); **atletak izan** (3); **aurreneko euskal atletak** (8); **duen atletak** (3); **duten atletak** (3); **eliteko atletak** (4); **etiopiako atletak** (3)

eliteko atletarik (3)

atletek ere (4); **euskal atletek** (4)

euskal atleten artean (3)

---

atletiko **1** *izond* atletismoari eta atletei dagokiena; pertsonez mintzatuz indartsu eta gihartsua dena.

Morroskoa bai, baina gihartsua eta indartsua ere bai, eta bazuen halako ibilera **atletiko** eta zalu bat ere. Oskar Arana

Berrikiago, medikuek deskribatu dituzte gorputz-trebetasun harrigarrien jabe diren idiot savant zenbait, erraztasunik handienaz akrobazia eta marka **atletiko** izugarriak egiteko gauza direnak, "kasu hartan ere inolako entrenamendu formalik gabe". Xabier Olarra

Emakumeari eta gizonari, biei gustatzen zaizkien jolasak hartu behar dira kontuan, eta horrela bakarrik aterako gara ataka estutik, eta sexua ez da gehiago izango proba **atletiko** edo azterketa bat, baizik eta jolasa eta festa. Luis Elberdin

Marrazkian, erromes **atletiko** bat, halako deabru batek torratzen duela. Piarres Aintziart

Dena txima luze eta gorputz **atletiko**. Patxi Iturritegi

Saskibaloi partidan, Pepponek uste osoz esan zuen eraztun jokoak baduela, balio **atletiko** nabarmenaz gain, halako grazia fin-fina ere, eta harrituta zegoela egitarauan ez zegoelako sartuta eraztun jokorik. Koldo Biguri

Ez, horaila da ama bezala, eta aitaren gorpuzkera **atletiko** eta luzea dauka. gaurko bainualdian frogatu dut, bestalde, ez duela gorputz **atletikoa**. Eider Rodriguez

Bikilarena iraultza **atletikoa** da, lasterrak ez dio lizunari astirik uzten erro dadin. Markos Zapiain

Dantzari guztien biluztasun ia erabatekoak euren figura **atletikoak** preziatzeko balio izan du. Berria - Kultura

Hala ere, zirudiena baizik ez zen egiazki Damian Arruti: une batetik bestera hesteak okaztatuko zituen erretzaile porrokatu bat, zahartxoa aukeran, halako atarramentu **atletikoetan** ibiltzeko. Hasier Etxeberria

2 ***ibilketa atletiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Ibilketa atletikoa korrika edo lasterka egin gabe ahalik eta azkarren oinez ibiltzean datzan atletismoaren disziplinari deritzaio. Ibilketa eta lasterketaren muga atletaren bi oinek lurzoruarekin kontaktua galtzean dago. Azken hau gertatu ez gero, jada atleta korrika edo lasterka dabilela jo ohi da (ibilketarien hizkeran: hegan edota "airean"), horrek **ibilketa atletiko** frogetan zigorra izan ohi du. ETC-entziklopedia

---

atletismo *iz* banakako kirolen multzoa.

34 urteko Diaganak Olinpiar Jokoetan aritu ostean eman nahi zuen agurra, baina eskuineko izterrean duen lesiotik ezin osatuta, **atletismoa** uztea erabaki du. Berria - Kirola

Atletismoan ez dago txapeldun bakar bat. Andoni Egaña

Denek dute tokia taldean; goi mailako **atletismoarekin** batera, **atletismo** herrikoia ere lantzen dugu. Berria - Kirola

Hala hartuko bagenitu, eta denboraren kudeaketaren hori aintzat izan, **atletismoan** egiten den gisako zerbait gertatuko litzaigukeela jabetuko ginateke. Andoni Egaña

Ez nituen ezagutzen harmailak, eserlekuak, **atletismoko** pista, iragarkiak, argiak, zelaia, sarrera, hesiak, aldagelak, taberna. Karlos Linazasoro

Zelai inguruan bazen gizon bat aeromodelismoa praktikatzen ari zena, **atletismoko** pistan. Joan Mari Irigoien

Zendu gutxiago zegoen zelaian, **atletismoko** pistan, zulo eta izkinatan. Karlos Linazasoro

Espainiako **atletismoko** federakuntzaren txandala jantzia zuen bibote petraleko laguntzaile bat zekarren aldean, irribarretsu. Koldo Izagirre

1999ko abuztuan jazo zen, Sevillan egin zen **Atletismoko** Munduko Txapelketan. Txema Ramirez de la Piscina

'Golden Gala' izenburupean **atletismoko** izar nagusiak Erroman batuko dira gaur 'Golden League'aren barneko jardunaldian. Berria - Kirola

Ardoi **atletismo** taldeak bost urte bete ditu, eta oraindik ez du pista propiorik. Berria - Kirola

Obaba alboko herri koxkor bateko ikaslea zen Aguiriano, kolegioko **atletismo** taldean zebilena. Bernardo Atxaga

Atleta zen, baina ez zuen, Ibaiganera eroan ninduen hariari oratuz, Bilboko Athleticen hogeita bosgarren urteurreneko **atletismo** saioetan parte hartu. Edorta Jimenez

Inaugurazio festarako, On Camillok egitarau polita prestatu zuen: abesbatzaren kantaldia, **atletismo** lehiaketak eta futbol partida. Koldo Biguri

Atletismo topaketa batean, ordea, postuak ez du axola, norberak egiten duen markak baizik. Berria - Kirola

Iberoamerikako **Atletismo** Txapelketa dela eta zegoen antolaturik. Berria - Kultura

Joseba Permach atletarekin gogoratzen dira nonbait Donostiako Anoetako **atletismo** pistan. Berria - Euskal Herria

Denak jausi ote ziren **atletismo**-pistara? Karlos Linazasoro

Euskadiko **Atletismo** Federazioak txapelik gabe utzi du Younes marokoarra. Berria - Kirola

Amerikako Estatu Batuetan jaioa da Morales, baina Zizur Nagusia izan du bizitoki azken sei urteotan, eta Nafarroako **Atletismo** Federazioarekin du hark ere bere kirol fitxa. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **atletismo federazioaren** (4); **atletismo taldeak** (5); **atletismo txapelketa** (3); **espainiako atletismo federazioak** (6); **espainiako atletismo federazioko** (4); **euskadiko atletismo federazioak** (7); **nafarroako atletismo** (4); **nazioarteko atletismo federazioak** (5)
>
> **atletismoko pista** (3)

---

atmosfera **1** *iz* eguratsa.

Azido sulfidrikoaren gelara, hilgarria baitzen han **atmosfera**, intimitate-irrikaz zeuden bikoteak erretiratzen ziren, eta bakartiren bat mokadu bat jatera. Juan Garzia

Atmosfera eraldatuan ontziratua. Edorta Agirre

Iristen zaizkigun irradiazio horretatik kopuru dezentekoa **atmosferako** geruzek iragazten dute. Pello Zabala

Atmosferako hautsak. Pello Zabala

Bolidoak igarotzean eragiten duen inarrosiak kristaldu egiten du **atmosferako** ur lurruna. Josu Zabaleta

Arnasa botatzen dugunean, berriz, **atmosferakoa** baino handiagoa izan behar du biriketako presioak, bestela airea ez baita mugituko. Irene Aldasoro

Atmosferan hor ditugu, biziari esker, edo bizitzaren defentsarako Norbaitek hor ipinita, aire-molekulak, ur-lurrin txataltxoak, hodeietako eta lainoetako ur-xorta ttikiak eta beste hauts-motta ttipi-ttipiak. Pello Zabala

Atmosferan dagoen ur-lurrun kantitatea. Irene Aldasoro

Jaurtigailu zaharraren karkasa-zatiak **atmosferan** sartu orduko birrinduko ziren, eta haien errautsa besterik ez zen iritsiko lurrazalera. Patxi Iturritegi

Guk dakigula, unibertsoaren zatirik handienean ez dago bizitzarik, eta, lurrean ere, harkaitz, itsaso eta **atmosferaren** masaren milioiren bat baino gutxiago da, guztira, gauza bizien masa, landare eta mikroorganismoak barne. Irene Aldasoro

Izan ere, ke-bolada ezinago pozoitsu bat zetorren **atmosferaren** goialdetik, mehatxuka. Josetxo Azkona

Berehala aldatu da mundua, eta are **atmosferaren** koloreak ere. Iban Zaldua

Atmosferaren gardentasun-aldaketa. Pello Zabala

2 anbientea, giroa.

Existentzialismoaren **atmosferan** hazi ginenok bederen, balioen oinarriztapen razional absolutu bat ez dugu inola posible ikusten, baina haren premiarik ere ez dugu sentitzen ezertarako. Joxe Azurmendi

Baina ez pentsa eleberri izugarri errealista denik, hain zuzen ere kontrakoa esango nikek, oso **atmosfera** irreala nagusitzen duk liburuan zehar. Mikel Hernandez Abaitua

Mundu txiki, urrun baten barnean soilik sentitzen zen babestua, marginaltasuna eta delitua iradokitzen zuen **atmosfera** hartan, hain zuzen ere. Karlos Linazasoro

3 ***artizarreko atmosfera***

Tresna horien bidez **Artizarreko atmosfera**, sumendien jarduera, eta klima aztertuko dituzte. Berria - Gaiak

4 ***atmosfera eredu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Kimika beste jakintza-arlo batzuekin konbinatzean erakutsi zuten kimikariek, nolanahi ere, beren ahalaren zabala, zenbait **atmosfera-eredu** zertu eta haien araberako emaitzak iragarri baitzituzten, hurrengo hamarkadetan egiaztatu direnak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Itxuraz, behaketen bidez lorturikoaren nahiko antzerakoa da, baina bien arteko harreman zehatza, erabilitako izar **atmosfera ereduaren** xehetasunen mende dago, eta ez da txikikeria. ETC-entziklopedia

5 ***atmosfera geldo*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Argona kolore eta usainik gabeko gasa da eta **atmosfera geldoak** sortzeko erabiltzen da. ETC-prentsa

Zenbait kasutan, prestakina babesteko, **atmosfera geldoan** lan egin daiteke, eta, prestakina nitrogenoz edo CO2-z aseta, produktuaren inguruko airea desagerraraz daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Une horretan, matrize-erretxina "pirolizatu" egiten da, hau da, karbono bihurtzen da **atmosfera geldo** batean berotu eta gero. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, baliagarri dira toki jakin batean **atmosfera geldo** bat hornitzeko, atmosfera arrunta -edo are nitrogeno hutsez osaturiko atmosfera- erreaktiboegia litzatekeenean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nitrogenoz osaturiko **atmosfera geldoan** sugarrak itzali eta animaliak hil egiten dira, baina aldi berean, lehen mailako bioelementu gisa sailkatu ohi da, karbono, hidrogeno eta oxigenoarekin batera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bere erreaktibotasuna baxua denez, **atmosfera geldo** bezala ere erabiltzen da likido leherkorrak gordetzeko, elektronikako osagarrien fabrikazioan edota altzairu herdoilgaitzaren produkzioan. ETC-entziklopedia

6 ***atmosfera kontrolatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Laugarrenekoak: **atmosfera kontrolatu** edo eraldatuan ikuzi, zuritu, ebaki eta ontziratu direnak: letxuga nahasiak, entsaladak. ETC-prentsa

Arrue proiektuari buruzko jardunaldian, eskolak euskararekiko betetzen duen egitekoaz ondoko terminoak entzun ziren: gotorlekua, **atmosfera kontrolatua**, kontrapisua... ETC-prentsa

Eduardo Apodaka soziologoak eskolak euskararekiko betetzen duen egitekoaz '**atmosfera kontrolatua**" terminoa erabili zuen; umeei erreferentzia eginez, ez gazteei. ETC-prentsa

Etileno-ekoizpena inhibitzeko eta fruituak kontserbatzea sustatzeko diseinatutako biltegiek O2-kontzentrazio txikiko eta tenperatura baxuko **atmosfera kontrolatua** dute, etileno-biosintesia inhibitzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *atmosferako zirkulazio* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Klima aldaketari eta berotegi efektuari buruzko bost lan arlo jorratuko dituzte: **atmosferako zirkulazio** orokorreko modeloak, klima aldaketari buruzko modelo integratuak, klima aldaketaren inplikazio sozial eta ekonomikoak eta klima aldaketaren eraginen nahiz kalteen balorazioa. ETC-prentsa

Presioaren aldaketak, era berean, aldatu egiten du **atmosferako zirkulazioa** eta beroaren, hezetasunaren, lainoen eta eurien banaketa. ETC-prentsa

Montzoia urtaro batetik bestera norabidea aldatzen duen **atmosferako zirkulazio** orokorreko haize sistema da. ETC-prentsa

Ozeanoetatik lurrundutako ura dakarten aire masa beroak igo egiten dira, honek **atmosferako zirkulazioa** edo konbekzioa sortzen du. ETC-entziklopedia

Mugimendu hauen emaitza da **atmosferako zirkulazioa** da, eguraldia eta klima eragiten dituena energia termikoaren birbanaketa bidez. ETC-entziklopedia

Montzoia **atmosferako zirkulazio** orokorreko haize-sistema da, urtaro batetik bestera norabidea aldatzen duena. ETC-entziklopedia

8 *atmosferan sartu*

2003. urteko otsailaren 1ean desegin zen Columbia transbordadorea, **atmosferan sartzekoa** zenean. Berria - Gaiak

9 *goi atmosfera*

Berez, **goi** atmosferan dago [ozonoa]. Berria - Gaiak

1980 eta 2000 urteen artean **goi** atmosferako ozono geruza %3 mehetu zen. Berria - Gaiak

Lurreko **goi** atmosferan agertu ohi diren argiak ikertu dituzte adituek. Berria - Gaiak

10 *lurraren atmosfera*

Beste aditu batek, Bolidoen eta Meteoritoen Ikerketarako Sareko kide Jordi Llorcak, **Lurraren atmosferarekin** bat egin zuen materia puska "kometa bat» zela erran zuen atzo. Berria - Gaiak

Kometa edo asteroide baten hauts-pikor bat da izar erratu bat, **Lurraren atmosferaren** kontra abidura handian jotzen duena. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atmosfera du (3); **atmosfera kutsatzen duten** (3); **atmosfera uste baino** (3); **atmosfera zeharkatu** (4); **du atmosfera** (4); **lurreko atmosfera** (4); **marteko atmosfera** (3); **oso atmosfera** (3); **tenperatura eta atmosfera** (3); **titanen atmosfera** (3)

atmosferako karbono dioxido (6)

atmosferan dagoen (3); **atmosferan sartu** (4); **atmosferan sartuko da** (5); **goi atmosferan** (3); **lurraren atmosferan sartuko** (3); **titanen atmosferan** (7)

atmosferara isuritako (3); **atmosferara isurtzen den** (3)

atmosferarekin bat (4)

atmosferaren gardentasun aldaketa (3)

atmosferatik kanpo (3)

---

atmosferiko 1 *izond* atmosferarena, atmosferari dagokiona.

Fenomeno **atmosferiko** erreala da izpi berdea, oso-oso gutxitan ikus daitekeena. Iñaki Iñurrieta

Egun, jarduera horren ondorioz hauts **atmosferiko** bat dagoela dio,eta hauts horrek eguzki erradiazioengatik babestu egiten dutela jendea. Berria - Gaiak

Gardentasun konbentzional hori ia pintura guztian izan da, salbuespen bakan batzuekin (paisaiaren atzealdeko perspektiba **atmosferiko** deitua, adibidez), inpresionismoa arte, inpresionismoak egin baitu gardentasun horren aurka, lausotasuna landuz. Josu Zabaleta

Zehaztasun optiko-geometrikoa hurbilago al dago ideal horretatik efektu **"atmosferiko"** baten bilaketa baino? Josu Zabaleta

Zarneckiren arabera, bestalde, Huygens ontziaren lana proba **atmosferiko** bat bezala ikusi behar da, ez baita ziurra lurreratu ostean, seinalerik jasotzea. Berria - Gaiak

2 *aerosol atmosferiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Aerosola (edo **aerosol atmosferikoa**) atmosferan une eta toki jakin batean agertzen diren gasen eta materia partikulatuaren multzoaren nahasketari deritzo. ETC-entziklopedia

3 *baldintza atmosferiko*

Izotz blokeek tenperaturaren, prezipitazioen eta **baldintza atmosferikoen** inguruko informazioa gordetzen dute. Berria - Gaiak

Jo dezagun Hiztegi berera, ea nola azaltzen digun Klima hitzarena: "Halako eskualde batean, eguraldiaren egoera eta aldaketek ezarritako **baldintza atmosferikoen** multzo fluktuatzailea". Pello Zabala

4 *deskarga atmosferiko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Energia-sistema elektrikoetan, prozesu iragankorrak sortzen dira maniobren, akatsen, **deskarga atmosferikoen** edo energia-eskariaren aldaketen eraginez. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *egoera atmosferiko* *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Meteorologiak, une eta leku zehatz batean aldagai klimatiko desberdinek (tenperatura, presioa, hezetasuna, haizea, euria, irradiazioaren indarra eta denbora,...) osatzen duten **egoera atmosferikoa** zehazten du. ETC-prentsa

Orduko abuztuko **egoera atmosferikoa** berriro ere izan daiteke bihar edo etzi, hori meteorologiaren berezko gorabeheren barruan sartzen delako. ETC-prentsa

Beranduago, eguraldi hitzaren semantika aldatu zen gaur egun dugun "**egoera atmosferikoa**" adierazteko. ETC-prentsa

Egoera atmosferikoak erakusten du goiko geruzetan aire masa hotza jaun eta gabe dugula eta, gainera, ez dagoela egonkortuta, alegia, momentu batetik bestera izugarrizko aldaketak izan daitezkeela. ETC-prentsa

Azken bost hilabeteotan zundak planetaren lur eremuaren osaketa aztertu du, baita **egoera atmosferikoa** ere. ETC-prentsa

Onddoa duela urte batzuk hasi zen agertzen, eta azken urtean neguko **egoera atmosferikoagatik** nabarmendu da: tenperatu altuak eta euri gutxi. ETC-prentsa

Egoera atmosferikoak erakusten du goiko geruzetan aire masa hotza jaun eta gabe dugula eta, gainera, ez dagoela egonkortuta, alegia, momentu batetik bestera izugarrizko aldaketak izan daitezkeela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Urte guztian, bi **egoera atmosferiko** gailentzen dira batez ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egoera atmosferikoa ez zen aldatu, eta berriro ere goi presio gune eta behe presio gune batek, Siberiatik etorritako hotza eta ipar poloko hezetasuna Europa erdialderantz bideratu zuten. ETC-entziklopedia

Estazio meteorologikoa edo meteorologia-estazioa lehorreko edo itsasoko instalazio bat da, **egoera atmosferikoak** neurtzeko tresnak eta ekipoak dituena, eguraldiaren iragarpenak eta klima eta eguraldia aztertzeko. ETC-entziklopedia

6 *elektrizitate atmosferiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Antzinatean, ohituta zeuden **elektrizitate atmosferikoaren** efektuekin, batez ere tximistekin. Hala ere, elektrizitatea gutxi ulertzen zen eta ez ziren gai fenomeno elektrikoak sortzeko. ETC-entziklopedia

7 *ingurune atmosferiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ingurune atmosferikoa neurtzeko tresnak teknika espektrometrikoetan oinarritzen dira gehienbat, kimiluminiszentzian, infragorrian edota, fl uoreszentzian adibidez. ETC-

zientzia, zuzenbidea

Meteorologia atmosferaren fisika aztertzen duten zientzietako bat da; eguraldiaren eta **ingurune atmosferikoaren** egoera, horretan gertatzen diren fenomenoak eta horiek betetzen dituzten legeak aztertzen ditu. ETC-entziklopedia

8 *kimika atmosferiko* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Bi izango dira nire arretaguneak: batetik, **kimika atmosferikoaren** diziplina-konformazioa -fisika atmosferikoa ordezkatzen duena-; eta, bestetik, horren integrazioa klimaren ikerketan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Formatu diren alkoxilo erradikalek **kimika atmosferiko** interesgarria dute, zeren haien bilakaerak, hein handi batean, determinatzen baitu oxidazio-prozesu atmosferikoetan formatutako produktuen izaera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Atmosferaren zientziek Lurraren atal gaseosoa aztertzen dute, lurrazalaren eta exosferaren artean dagoena. Hemen daude meteorologia, klimatologia, **kimika atmosferikoa** eta fisika atmosferikoa. ETC-entziklopedia

Zientzia atmosferikoen adarra izaki, **kimika atmosferikoa** eta fisika atmosferikoa uztartzen ditu, eguraldia iragartzera berariaz bideratuta. ETC-entziklopedia

9 *kondizio atmosferiko* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

10 m-ko bereizmen espaziala lortzen zuen **kondizio atmosferiko** onenetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zona menditsuetan, gainera, fidagarritasun handiagoa lortzen da ibilbidean, **kondizio atmosferikoak** ez baitu eraginik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eraztun horiek zehazki sortu ziren urtea zehazteaz gain, urte horretan egon ziren meteorologia **kondizio atmosferikoak** aztertzen dira. ETC-entziklopedia

10 *kutsadura atmosferiko*

-Kutsadura atmosferikoa, hau genuke azken urteotako lorpen tristeetako bat. Pello Zabala

11 *presio atmosferiko*

Otto de Guerickerena egin zuen aktoreak eman zituen ikerkuntzari buruzko azalpenak; ' **presio atmosferikoak** ez die uzten bi ontziei banatzen. Berria - Gaiak

Bularreko presioa (birikak barne) kanpoko **presio atmosferikoa** baino txikiagoa denez, aire berria zurrupatzeko gai dira birikak; bihotzari eta bular-kaiolaren barruko zainei ere eragiten die presio-jaitsierak, eta, horren ondorioz, hobeto zurrupatzen dute zain horiek diafragmaren azpiko zainetako odola. Irene Aldasoro

Demagun airea ur geriza batekin elkartzen dela: **presio atmosferikoa** aldatzen bada, orduan ur azala hainbat zatitan, alegia uhinetan, deskonposatzen da; uhin horiek balio digute pentsamenduaren eta gai fonikoaren arteko loturaren ideiaz, edo, nolabait esateko, uztarduraren ideiaz jabetzeko. Isabel Arrigain

12 *zirkulazio atmosferiko* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Zientzialariek aditzera eman dutenez, Txinan egunotan gutxienez 60 lagun hil dituen eguraldi fenomenoa "ez-ohiko" **zirkulazio atmosferikoaren** ondorio da. ETC-prentsa

Hala ere, **zirkulazio atmosferikoa** eta egonkortasun atmosferiko polarra aldatuta gera daitezkeenez, egoera globala analizatzea zaila da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haien mekanismo erregulatzailea ez da **zirkulazio atmosferikoaren** anomalia bat besterik, eta Asia Hego-ekialdeko biztanle gehienei modua ematen die Arabiako eta Saharako basamortuen latitude berberetan bizitzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ipar hemisferioko **zirkulazio atmosferikoaren** ekintza-gune nagusia da, jarduera ziklonikoarekin lotuta. ETC-entziklopedia

Erliebe handien altxaketak **zirkulazio atmosferikoa** aldatzen du, haizeen erregimena eta hezetasunaren banaketa. ETC-entziklopedia

Tenperatura desberdinean dauden bi haize-masaren mugimenduak dira haizea deitzen duguna. Mugimendu horri " **zirkulazio atmosferikoa** " deitzen zaio. ETC-entziklopedia

---

atoan *adlag* mementuan, bat-batean.

Mikelek eta Jonek **atoan** hartu zituzten papelak. Unai Iturriaga

Atoan erantzun zuen Jonek: [...]. Unai Iturriaga

Atoan ulertu zion, bonbardaketez ari zirenetan hizkuntza berean mintzo baitziren. Lutxo Egia

Sartu eta **atoan**, orri zuriak zabaldu eta horra hor mikrokosmosa berriz! Berria - Kultura

Bennetten begirada hotza ikustean **atoan** isildu zen. Fernando Morillo

ø **atoan** ohartu nintzen zein zen ezaugarri haien arrazoia. Jon Arretxe

Atoan maitemindu nintzela uste dut. Edorta Jimenez

Altxatu behar zara, **atoan**, Ebe ondo dagoela ziurtatu behar duzu. Sonia Gonzalez

'Amatatu argi hori eta zoaz **atoan** ohera! Joseba Sarrionandia

Berehala, **atoan** eta azkar zuzendu zuen esku politikoagoren batek: "Zapatero abre el diálogo con ETA". Iñigo Aranbarri

Arineketan joan zen etxera, eskailerak **atoan** igo eta atea giltzaz itxi zuen. Lopez de Arana

'Erdu **atoan** hona!'. Joseba Sarrionandia

Jakingo balute, **atoan** fusilatuko gintuzkete". Karlos Linazasoro

Istripua izan zuen astelehen gauean Mantxako itsasartean Maltako merkantzia ontzi baten kontra kolpea hartuta, eta **atoan** lehorrera eramaten saiatu baziren ere, hondoratu egin zen. Berria - Gaiak

Memento horretan **atoan** itzali zitzaien sua Eibarreko jokalariei. Berria - Kirola

Iluntzean, horra goizeko pinaza berriro hor, beste ontzi baten **atoian** baina. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zuen atoan** (3)

---

atoe ik **atoi**.

---

atoi 1 *iz* beste batek atoian eramateko prestatzen den ibilgailua.

Nerbioi erdiko borrokalekura garraio-lanak egiten zituen txalupa ez zen arraunez edo motorrez aurreratzen, mutur bitako txikota luze baten **atoian** baino. Josu Landa

- **Atoian** eramatea nahi? -oihu egin nien, baina ezin zuten entzun. Koro Navarro

Balekumea hil eta **atoian** eramango zuten badiaren batera, balekumearen amak umea utzi ezin eta atzetik segituko zien, harik eta badia aproposean balea handia ere arpoiz joko zuten arte. Joseba Sarrionandia

O, etorri orain; umearen gauza guztiak zorroan sartuko ditugu, portura **atoian** garamatzaten bitartean. Lopez de Arana

Txalupa bakoitzak uzten du bere ubera badian, eta esan liteke izei bana daramatela **atoian**, adarrak oro zilar. Koldo Izagirre

Kubako gerraontzi batek salbatu zuen; ekaitz betean eraman zuen **atoian**. Jon Muñoz

Bonantzako petriletik murgil egiten ari ginen, hotza oraindik, ikusgarri hura sartu zenean bokalean barrena, zilarrezko pinu handia -hau nonbait irakurria naizela uste dut- zekarrela **atoian**. Koldo Izagirre

Armadoreak segurua kobratuko zuen eta enbarkazioa desegite eta burdinurtze lanetarako urgaineratu eta ekarri zuten **atoian** Kaioarriko nasa txikiraino. Joseba Sarrionandia

Txalupa bat hurbildu zitzaion, **atoian** portura sartzen laguntzeko asmoarekin. Martin Anso

Sarepetik alde egin eta ziztu bizian egingo duzue igerian ur azalera eta gero lehorreraino, **atoian** ekarririk sarea gauza galduez beterik. Joseba Sarrionandia

2 *atoian eraman*

Atoian eramanik, hiru mastako goleta bat jaisten ari zen North River-en zehar. Lopez de Arana

-Atoian eramatea nahi? -oihu egin nien, baina ezin zuten entzun. Koro Navarro

Kamioietan edo oinez, gerra tresneriaren eta soldaduen martxa ikusgarria izaten zen, eta ikusgarriena kanoiak, berrogeitik gora kanoi handi kamioien atzean **atoian eramanak**. Joseba Sarrionandia

Atoian eraman ninduen toki loriatsuen bira beti-berdin-beti-ezberdin hartan. Xabier Montoia

Ontzia ainguratzen saiatu ziren eta, gero, **atoian eramaten**. Berria - Gaiak

Eta handik abiatu ziren hirurak buruzagia **atoian zeramatela** berriz halakorik ez egiteko erreguka, lehen egun hartakoagatik ez ziela kargu hartuko eta mesedez ez zezatela huts egin biharamuneko ikastaroa. Koldo Izagirre

Gerlari batzuk beste txalupa batean itsasoratu ziren eta arraunketari ekin zioten, Fionn eta Maelena **atoian eramanez**. Joanes Urkixo

Une batzuetan ordulariaren orratzek **atoian eraman** behar naute. Eider Rodriguez

Balekumea hil eta **atoian eramango** zuten badiaren batera, balekumearen amak umea utzi ezin eta atzetik segituko zien, harik eta badia aproposean balea handia ere arpoiz joko zuten arte. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atoian eraman** (5); **atoian eramatea** (3)

---

atoiontzi *iz* atoian eramateko ontzia.

Isil-isilik, ezari-ezarian, **atoiontzi** baten argiak iluntasun ezkoan zehar lerratzen ziren. Lopez de Arana

McAvoy kapitaina, Prudence **atoiontzikoa**, aginte-gelan zegoen, zutik, esku bat leman pausaturik. Lopez de Arana

Ezta **atoiontzi** handiak ere! Koldo Izagirre

Garabi-plataforma baten gainean nengoen zutik, **atoiontzi** beltzek gureari txopatik heldu eta kanpora ginderamatzatela; eta berriro sirenak jo eta jo. Joxe Austin Arrieta

Itsasontziaren albo batera gerturatzen ari zen **atoiontziaren** zalapartak ez zion utzi Jimmyren erantzuna entzuten. Lopez de Arana

Gustura egin dut erreka ertzeko bidea, nire buruaz ziur, Euskaldunako zubitik, Lutxanatik jadanik kresala nabari zela, kaioak, zamaontziak, **atoiontziak**... eta atzean, estu besarkatuta bular oparoak itsatsiz, neska polit hori. Urtzi Urrutikoeetxea

Ferry gorriak, autoetarako ferryak, **atoiontziak**, hareaz eta egurrez beteriko gabarrak Mr. Lopez de Arana

Kontrako noranzkoan, hamaika ontzi igarotzen ziren uretan gora **atoiontzien** laguntzaz, mota guztietako salgaiak Nijni Novgorodera eramanez. Karlos Zabala

Portuan zegoen itsasontzi trafikoari buruzko iruzkinek eta **atoiontzien** negozioaren gorabeherek bete zituzten lagunarte hartako hurrengo minutuak. Josu Landa

Atoiontziko motorra martxan zegoen eta Mentxuk hankak zabaldu zituen zoruan, segurtasun bila. Josu Landa

Santosek esan du gero **atoiontzitik** pasako dela fuelaren bonban ez dakit zer konpondu behar duelako, eta eguerdira arte ez ei da itzuliko. Josu Landa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atoiontzi baten** (3)

---

atoloi *iz* eraztun itxurako koralezko arrezifea, barnean itsasoarekin pasabide estu batzuen bidez lotzen den aintzira bat duena.

urteak bitartean 123 eta 196 bonba nuklear artean piztu zituen Mururoako **atoloian** eta Fangataufakoan ere hainbat eta hainbat saio egin zituen. Berria - Mundua

Aingurok oso handiak dira eta kalte larriak eragiten dituzte **atoloian**. Berria - Gaiak

Marshall Uharteetako **atoloi** batek kalte-ordainak eskatu dizkie AEBei. Berria - Gaiak

Islatxoa, Bikini **Atoloitik** hurbil zegoen. Berria - Kultura

Munduko **atoloirik** handienetan hirugarrena da Sabako Barra. Berria - Gaiak

---

atomika ik **atomiko**.

---

atomiko 1 *izond* atomoari dagokiona; energiez mintzatuz, atomoaren desintegrazioaren bidez lortzen dena.

Unibertsoaren egituraren hiru teoria zientifikoak hauek dira: molekularra, korpuskularra eta **atomikoa**. Xabier Olarra

Gizartea sorgailuen, motor elektriko eta turbinen mendean, erreaktore **atomikoen** eta erreakzio termonuklearren mendean sartu da. Felipe Juaristi

Arma **atomikoak** erabiliz egingo al dugu gerra? -galdetuko du norbaitek. Xabier Mendiguren Elizegi

Hirugarren mundu-gerra batean, arma **atomiko** edo bakteriologikoekin, ezinezkoa zirudien Heriotzaren aingeruak ez ikustea gizakiaren lurreko habitat-eko gordeleku eta zokoak, duela oso gutxi arte edo erakargarritasun gutxikoak edo iristezinak edota biak zirenak. Iñaki Mendiguren

Eta, egia erran, II. Mundu Gerla arma **atomiko** berriei esker irabazi berri zelarik eta indar militar beldurgarri horien orekari zor omen geniolarik botereen arteko bakea, nehor gutik zuen indarkeriaren bidea garbiki gaitzesten. Piarres Xarriton

Izan ere, gerra hotzaren garaian estatubatuarrek base itzela eraiki zuten Groenlandiako iparraldean, misil **atomiko**, berrogei metro altuerako irrati antena erraldoi eta gainerako infernuko tresna guztiekin Energia **atomikoa**, bonbena zein zentralena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bonba **atomikoa** gizakiaren eskuetan jartzean, gerra deuseztera behartuko zuen. Iñaki Mendiguren

Horregatik irrikatu zuten hainbeste -orain marmarka zebiltzan guztiek!- bonba **atomikoa**. Fernando Morillo

Pentsatzen zuten mendi harkaitz-lerro handiekikoak zulatzeko bonba **atomikoa** erabiliko zutela, behar bazen. Pello Zabala

Gizakiaren lehenbiziko eztanda nuklearraren lekuko eta sortzaile, Robertek estu aztertu zuen hamaika kilometroko onddo **atomikoa**. Fernando Morillo

Werner energia **atomikoaren** erabilpen militarren inguruan jardun zitzaidan. Fernando Morillo

Etorkizunak ikusiko gaitu materia aldatzen eta osagai berriak sortzen, ingeniaritza **atomikoari** esker. Pello Salaburu

Jakintsuek diotenez, erabateko gudu **atomikoa** izango balitz, ugaz-tun guztiak galduko lirateke, bat bakarra izan ezik: arratoia. Gotzon Garate

Obratik kanpora dagoela uste badu, termino **atomikoetan** pentsatzen ariko da. Xabier Amuriza

Poesiaren izaera, beste edozein gauzarena bezala, **atomikoa** da. Xabier Amuriza

2 *arma atomiko*

Horretan Mendebaldeko europar herriek zer esanik izan gabe, errusiarren **arma atomikoak** buru gainera ekarriko ote zizkien. Iñaki Mendiguren

Eta, egia erran, II. Mundu Gerla **arma atomiko** berriei esker irabazi berri zelarik eta indar militar beldurgarri horien orekari zor omen geniolarik botereen arteko bakea, nehor gutik zuen indarkeriaren bidea garbiki gaitzesten. Piarres Xarriton

- **Arma atomikoak** erabiliz egingo al dugu gerra? -galdetuko du norbaitek. Xabier Mendiguren Elizegi

Izan ere, AEBen eta Europako Batasunaren ustez, ikerketa horrekin **arma atomikoak** egitea du helburu Iranek, eta aldiz, herrialde horren arabera, uranio abestuak erabilera zibila soilik izango luke. Berria - Harian

Izan ere, Iranek programa nuklearrak xede zibilak baino ez dituela dioen arren, AEBek uste dute **arma atomikoak** sortu nahian dabilela. Berria - Ekonomia

EB Europako Batasunak eta AEB Ameriketako Estatu Batuek zentrifugagailu horiek **arma atomikoak** egiteko baliatuko diren susmoa dute. Berria - Mundua

3 *bonba atomiko* ik **atomo-bonba**.

Pentsatzen zuten mendi harkaitz-lerro handiekikoak zulatzeko **bonba atomikoa** erabiliko zutela, behar bazen. Pello Zabala

Eta itsasontziak - ur azaleko zein urpekoak -, eta hegazkinak, eta **bonba atomikoa**, eta misilak, hauts hilgarriak eta bakteria hilgarriagoak. Joxerra Garzia

Izan ere, orain, **bonba atomikoa** guk ere bazeukanagu, atsegin ez bazaizue ere. Koldo Biguri

-Laburtuz - jarraitu zuen Einsteinek -, Heisenbergen datuei esker, naziek ezinezkotzat zeukaten **bonba atomikoa**. Fernando Morillo

Ozeano Barean Mundu Gerra abuztuan amaitua zen, AEBetako hegazkinek Japonian **bonba atomikoak** jaurti ostean. Edorta Jimenez

Alemaniak **bonba atomikoa** sortzeko arriskua ikusten zuen. Berria - Harian

1945an jaurti zuten Hiroshiman (Japonia) **bonba atomikoa**. Berria - Gaiak

Edo zer zentzu du Ameriketako Estatu Batuek ez dezala barkamenik eskatu Hiroshima eta Nagasakiko **bonba atomikoen** biktimengatik edo Vietnamgo gerragatik? Joseba Zulaika

"Telebistarik ez ikusi", "Inori kasurik ez egin", " **Bonba atomiko** bat bota"... Xabier Mendiguren Elizegi

Halere, Bobbiok esan duenez, **bonba atomikoaren** ostean gerra bai ala ez galderari buruzko azken hitza ez da oraindik esan. Askoren artean

Ulertzen, gerraren amaiera zen, ordurako galduak sentitzen ziren, ez zuten gehiago astirik **bonba atomikoa** egiteko eta uranioa alfer-alferrik zeukaten. Juan Garzia

4 *eredu atomiko*

Nor oroitzen da Niels Bohr fisikariak garatu zuela 1911n lehenbiziko **eredu atomikoa** matematiken ikuspuntua erabiliz? Pello Salaburu

5 *erloju atomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **75** agerraldi)*

Erloju atomikoak bere kontagailua martxan mantentzeko erresonantzia atomiko arrunteko frekuentzia erabiltzen duen erloju mota bat da. ETC-entziklopedia

Satelitearen misioa Galileo sarearen teknologia probatzea da, batez ere sistemaren **erloju atomikoak**. ETC-prentsa

Teknologia horien artean, bada bat nabarmentzekoa: gaur arte espaziora bidali duten **erloju atomikorik** "zorrotzena". ETC-prentsa

Erloju atomikoa bezain ordurako heldu da Urlia. ETC-prentsa

Erloju atomiko berri horrek zesioaren ordez merkurio-atomoak ditu, eta mikrouhinen ordez, erradiazio ikusgaia. ETC-prentsa

Erloju atomikoak egiten dituen NIST erakunde estatubatuarrak frogatu egin du bata bestea baino 33 zentimetro gorago dauden bi erlojutan denbora ez dela berdin igarotzen. ETC-prentsa

Ondotik iritsi dira haren ekarpen horren emaitzak, eta hitzaldira joan ziren ikasleei azaldu zien besteak beste **erloju atomikoak** egiteko dela baliagarria. ETC-prentsa

Munduko lehen **erloju atomiko** praktikoa Londrestik gertuko Teddington hiriko laborategian eraiki zuten Louis Essenek eta John Parryk, 1950. urtean. ETC-prentsa

Sateliteetan **erloju atomikoak** daude -4 zati 1013-ko zehaztasunekoak- eta sateliteek argiaren abiaduran doazen seinale erregularrak igortzen dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zenbat denbora galduko du astronauta baten **erloju atomikoak** 7 eguneko bidaian? ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *erradio atomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **104** agerraldi)*

Erradio atomikoa atomo baten nukleo atomiko nukleotik urrunen dagoen elektroira dagoen distantzia da. ETC-entziklopedia

Taula periodiko baten lerro batean zenbaki atomikoa handitu ahala, txikiagotu egiten da **erradio atomikoa**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Geometrikoki sare-parametroen norabide erlatiboaren luzera kalkulatuz eta norabide horretan zehar **erradio atomikoen** balioak gehituz, aipaturiko erlazioa aurki daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Darwin konturatu zen zenbait **erradio atomikoren** balioak ez zetozela bat ordura arteko kalkuluekin. ETC-literatura, saiakera

Nukleoak atomoaren masaren % 99,95 duen arren, erradio nuklearra **erradio atomikoaren** 10-5 baino ez da. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *erresonantzia atomiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Erloju atomikoak bere kontagailua martxan mantentzeko **erresonantzia atomiko** arrunteko frekuentzia erabiltzen duen erloju mota bat da. Lehenbiziko erloju atomikoek erreferentziatzat maser bat izan ohi zuten. ETC-entziklopedia

8 *espektro atomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Espektro atomikoak, atomoek igortzen edo xurgatzen duten energia erregistratzen duten lerro segidak dira. ETC-entziklopedia

Bestetik, Rutherfordek ez zituen **espektro atomikoak** azaldu. ETC-entziklopedia

Hala ere, Bohren eta Stonerren sistemek ezin zuten zuzenki deskribatu eremu magnetiko baten barneko **espektro atomikoa**. ETC-entziklopedia

Leherketa bortitzak 200 bat metro luzeko onddoa edo txapela eragin zuen, **espektro atomikoaren** antzekoa, eta horrek ateratako zarata 25 kilometrora ere entzun ahal izan zen. ETC-entziklopedia

Beraz, Bohrrek pozik onartu zuen Max Plancken gonbita, Berlinen atomo kuantikoaz eta **espektro atomikoen** teoriaz hitzaldi bat emateko. ETC-literatura, saiakera

Gasetan zeharreko eroapen elektrikoaren ezaugarri anomalo batzuk azaltzeko proposatu zen elektroia, eta spina **espektro atomikoan** behatutako beste anomalia mota batzuen berri emateko iradoki zen. ETC-literatura, saiakera

Gasetan zeharreko eroapen elektrikoaren ezaugarri anomalo batzuk azaltzeko proposatu zen elektroia, eta spina **espektro atomikoan** behatutako beste anomalia mota batzuen berri emateko iradoki zen. ETC-literatura, saiakera

Baina **espektro atomikoei** buruzko datu esperimentalak, kuantu-teoria berriaren argitan azter zitezkeenak, hain ziren zehatzak, ezen desbideratze txikiak ageri baitziren Heisenberg-ek eta Schrödinger-ek iragarritakoen aldean. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *fisika atomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **79** agerraldi)*

Fisika atomikoa atomoen propietateak eta portaera (elektroiak eta nukleo atomikoak) aztertzen dituen fisikaren adarra da, baita materia-materia eta argi-materia elkarrekintzak ere atomo indibidualen eskalan. **Fisika atomikoaren** azterketak ioiak, atomo neutroak eta atomoen zatitzat hartzen den beste edozein partikula hartzen ditu barne. ETC-entziklopedia

" **Fisika atomikoaren** zuzendari" bihurtzeko bidean zen -halaxe deitu zion geroago Sommerfeldek-, bere lanari eta beste batzuentzako pizgarri gertatzeari esker. ETC-literatura, saiakera

Sommerfeld **fisika atomikoan** fase-espazio izeneko arlo batean ikertzen ari zen batean, Plancki idatzi zion laguntza eske. ETC-literatura, saiakera

Fisika atomikoaren eta biologiaren artean, bada eremu bat, materia-metaketa supramolekularra, zeinetan "unitate organikoa ingurunearekin bat egin eta desagertzen den". ETC-literatura, saiakera

Esanguratsua da antropologia, historia, geografia, naturaren filosofia, erlijio homerikoaren kritika, **fisika atomikoa** edo -horrek ekarriko duen- etika hedonista Jonian hastea, pentsalari ezberdinen jaiolekuak erakusten duenez. ETC-literatura, saiakera

Aleklett-ek Suediako Upsalako unibertsitatean **fisika atomikoa** irakasten du, eta gainera Petrolioaren Gailurra Aztertzeko Elkartearen (ASPO ingelesezko sigletan) lehendakaria da. ETC-prentsa

Botikagintzan, biologia zelularrean edo **fisika atomikoan** baliatzen dute, eta Txinako azpiegitura zientifikorik garestiena da, 210 milioiko kostua izan baitu. ETC-prentsa

Bide ezberdinetik jo dugu; nire lana, bereziki, **fisika atomiko** eta molekularrera bideratu da. ETC-prentsa

Fisika atomikoa garatu zen, baina bonba atomikoarekin batera: uste dut berrikuntza bakoitzak behar duela elkarrizketa etikorako tokia, eta ez ikusmin itsu bat. ETC-prentsa

Hemen ezarri zituzten **fisika atomikoaren** eta fisika modernoaren oinarriak. ETC-prentsa

Fisika atomikoak zientziaz haragoko interesa zuen orduan. ETC-prentsa

Bai Bohr eta bai Hartree XX. mendearen hasierako fisikariak ziren, eta **fisika atomikoan** zihardutenen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baliteke egia izatea; baliteke, Einsteinen garaipen harrigarriez geroztik, izarren astronomia eta **fisika atomikoa** izatea jendearen estimuaren aldetik garaile irauten duten zientzia bakarrak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alfa partikula ere esaten zaio: lausoa da batzuetan bereizkuntza **fisika atomikoaren** mundu txiki-txiki eta bizkor-bizkorrean. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *laser atomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Laser optikoen antzera, **laser atomikoa** uhin-moduan jokatzen duen izpi koherentea da. ETC-entziklopedia

11 *lehergailu atomiko*

Eta mundua beste gerra handi baten beldurrez bizi zela, **lehergailu atomikoak** lur gaineko bizitza zeharo erauzi zezakeela, ia arrastorik utzi gabe desager zitekeela gure planeta osoa eta orduan labezomorroak bakarrik geratuko zirela igual lur mortuaren azalean. Joseba Sarrionandia

Denon etxea den lurra inarrosi egin da: arma termonuklearrak **lehergailu atomikoaren** ordezkoak dira. Felipe Juaristi

12 *masa atomiko* ik **atomo-masa**.

Berdin zion klasea **masa atomikoaz** edo Avogradoren zenbakiaz edo elementu kimikoen sailkapenaz izan: Pertik beti baliatzen zuen esplikatzen ari zena munduari eta mundutarrei kontra egiteko. Anjel Lertxundi

13 *masa atomiko unitate* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Kimikan **masa atomiko unitatea** erabiltzeaz gain, mola ere erabiltzen da. Edozein elementuren atomo mol bat 6,022 · 1023 (Avogadroren zenbakia) atomori dagokio ETC-entziklopedia

Elementu baten masa atomikoa eta masa molekularra elementu baten edo molekula baten masa adierazten duen magnitudeak dira, eta **masa atomiko unitatetan** kalkulatzen dira. ETC-entziklopedia

14 *masa atomikoaren unitate* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Masa atomikoaren unitatea (sinboloa: u) edo daltona (sinboloa: Da) unitate estandarra da, eskala atomiko edo molekular batean masa adierazteko erabiltzen dena (masa atomikoa). ETC-entziklopedia

Horrenbestez, masa molekularraren neurritzat **masa atomikoaren unitatea** erabiltzen da. ETC-entziklopedia

Nukleoen eta atomoen masak era egokian neurtzeko, **masa atomikoaren unitateak** (u) erabiltzen dira: definizioz, 12C atomoaren masaren balio zehatza 12 u da. ETC-zientzia, zuzenbidea

15 *nukleo atomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **115** agerraldi)* ik **atomo-nukleo**.

Nukleoi, atomo nukleoa edo **nukleo atomikoa** osatzen duten partikulei deritze, neutroi eta protoiei alegia. ETC-entziklopedia

Nukleo atomikoa geruza energetiko gisako batek inguratzen duela da hipotesi honen oinarrian dagoen ideia. ETC-prentsa

Joan den mendeko errudun nagusiak **nukleo atomikoa** eta molekula izan dira, naturalak ez direnak batez ere. ETC-literatura, saiakera

Kasu honetan, Japoniako taldeak 113 protoi eta 165 neutroi dituen **nukleo atomikoa** lortu nahi zuen. ETC-literatura, saiakera

Orbital molekular lotzaileetan dauden elektroiek probabilitate handia dute **nukleo atomikoen** arteko espazioa betetzeko, lotura on bat eratzeko behar den bezala. ETC-zientzia, zuzenbidea

Orbital atomikoen izaeraren araberakoa da, baita dagozkion **nukleo atomikoen** arteko distantziaren araberakoa ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esate baterako, **nukleo atomiko** batean egituraaldaketak eginez gamma izpiak sor daitezke; bestalde, atomo baten egitura elektronikoan aldaketak eginez X izpiak, erradiazio ultramoreak eta espektro ikusgaia sortzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haren arabera, **nukleo atomikoen** inguruko elektroien konfigurazio egonkorrak uhin-bibrazioen eredu erregularrekin loturik zeuden. ETC-zientzia, zuzenbidea

Artikulua alfa partikulek materia zeharkatzean -eta ez **nukleo atomikoek** sakabanatzen zituztenean- galtzen zuten energiari buruzkoa zen. ETC-literatura, saiakera

Lehenik, nola liteke protoi karga positibodunak hantxe elkarturik egotea **nukleo atomikoa** den espazio estu-estuan? ETC-zientzia, zuzenbidea

16 *orbital atomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **329** agerraldi)*

Orbital atomikoa funtzio matematiko bat da, eta elektroi batek atomo batean duen uhin-portaera deskribatzen du. ETC-entziklopedia

Taula periodikoaren elementu kimikoen p blokea, funtsezko egoeran energia handieneko elektroia "p" **orbital atomiko** orbital batean daukaten elementuen multzoa da. ETC-entziklopedia

Orbital atomikoaren kontzeptua oso erabilgarria da, nola atomoak hala molekulak aztertzeko; eta orobat da erabilgarria **orbital atomikoen** biderkadura gisa adieraztea sistema polielektronikoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ohartuko zarenez, gehientsuena kimika orokorreko ikastaroetan jadanik ikusiak dituzun gaien berrikuspena da, hala nola lotura molekularrena, Lewisen egiturena eta erresonantziarena, **orbital atomiko** eta molekularrena eta loturiko atomoen inguruko geometriarena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kimikariek **orbital atomiko** esan ohi diete uhin-funtzio hidrogenoideei. ETC-zientzia, zuzenbidea

Elektroi baten banaketa hodei-antzeko horri **orbital atomiko** deritzo. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dentsitate-funtzionalaren teoria burutzeko **orbital atomikoen** konbinazio linealaz (LCAO) baliatzen den SIESTA. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *pala atomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Pala atomikoa palaz jokatzeko asmatutako instrumentua izan zen, Faustino Santiago Urkidi Lamikiz bilbotarrak asmatua. ETC-entziklopedia

18 *pila atomiko*

Lehenbiziko **pila atomikoa** asmatu eta egin zuen. Fernando Rey

19 *pisu atomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **246** agerraldi)*

1864an Newlands kimikari britainiarrak elementuak euren **pisu atomikoaren** arabera ordenatu zituen, eta zortzikotea osatutakoan propietateak periodikoki errepikatzen zirela ikusi zuen. ETC-prentsa

Margolanean dauden pigmentuen eta zaharberritzean erabilitako itsasgarrien **pisu atomikoen** aldean datza gakoa. ETC-prentsa

Garai hartan ura, hidrogenoa eta oxigenoa ziren kimikan ongien ezagutzen ziren substantziak, eta hidrogenoaren eta oxigenoaren **pisu atomikoak** neurri kimiko guztien ereduak ziren. ETC-literatura, saiakera

Kimikari batek, definizioz, ez du gorputz berri bat existitzen denik sinesten gorputz hori ikusi, ukitu, pisatu, aztertu, azidoekin alderatu, ontzi batean sartu eta haren "**pisu atomikoa**" zehaztu arte. ETC-literatura, saiakera

Has gaitezen kimikako kontzeptu oinarrizkoenetako bati buruz hausnartzen: **pisu atomikoa**. ETC-literatura, saiakera

Batetik, **pisu atomikoaren** arabera (Avogadroren printzipioa erabilita), eta, bestetik, antzeko propietateen arabera (adibidez, metalak eta gasak bereizten ziren). ETC-literatura, saiakera

Pisu atomikoa neurtzeko modu zuzenik ez zuenez, Daltonek haien pisu erlatiboak zehaztu zituen. ETC-literatura, saiakera

Hori egiteko, Armu biderkaduraz adieraziko dugu atomoaren masa, non **pisu atomiko** erlatiboa baita Ar eta masa atomikoaren konstantea baita mu=m (12C) /12. ETC-zientzia, zuzenbidea

loi baten adsortzio-gaitasuna erlazionatuta dago haren hidratazio-gaitasunarekin, eta hori, era berean, erlazionatuta dago ioiaren kontzentrazioarekin, **pisu atomikoarekin** eta tamainarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Magnitude honetan eraginik handiena gelaxka unitarioa osatzen duten atomoen **pisu atomikoek** daukate. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dalton-ek ezin zuen neurtu benetan zenbat pisatzen zuen atomo bakoitzak; beraz, beste atomoen pisuekiko alderaketa baino ez ziren **pisu atomikoak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horietako bakoitzaren **pisu atomikoa** pixka bat desberdina da, haren konposizioaren ondorioz. ETC-zientzia, zuzenbidea

20 *teoria atomiko*

Bere ondorioek **teoria atomikoari** buruzko zalantzak argitu eta beste zenbait teoria lantzen lagundu dute; adibidez, supereroankortasunarena. Berria - Harian

21 *zenbaki atomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **414** agerraldi)* ik **atomo-zenbaki**.

Atomo-zenbakia, atomo zenbakia edo **zenbaki atomikoa** atomo batek atomo nukleo nukleoan duen protoi kopurua da. ETC-entziklopedia

Urrea 79 **zenbaki atomikoa** eta 196,967 pisu atomikoa duen elementu kimikoa da. ETC-literatura, saiakera

Azken elektroi horiei elektroi aske edo elektroi orbital deritze, eta kasu bakoitzean **zenbaki atomiko** deritzona ematen dute. ETC-literatura, saiakera

Errenkadak, berriz, elementuen nukleoko protoi-kopuruaren arabera ordenatzen dira, txikitik handira; alegia, **zenbaki atomikoaren** arabera. ETC-literatura, saiakera

Zilarraren **zenbaki atomikoa**: 47; pisu atomikoa, 107,86, Mendeleiven taulan. ETC-prentsa

117 **zenbaki atomikodun** ununseptium izeneko elementua sortu du Errusiako zientzialari talde batek. ETC-prentsa

Egun, Elhuyar anaiek isolatutako elementu gogorrak bere txokoa du taula periodikoan; tantalioaren eta renioaren artean, W ikurra eta 74 **zenbaki atomikoa** duen huraxe da. ETC-prentsa

Wolframaren sinboloa W da, eta 74 **zenbaki atomikoa** du; halaxe ageri da elementuen taula periodikoan. ETC-prentsa

Zenbaki atomiko txikiagoko elementu solidoek bero-ahalmen txikiagoak dituzte, giro-tenperaturan; horrez gain, solido guztien bero-ahalmenak zerora hurbiltzen dira, tenperatura absolutua zerorantz hurbiltzen den heinean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Taula periodikoari begiratuz hasiko gara, eta ikusiko dugu **zenbaki atomikoa** handitzen den heinean elementuen elektroi-konposizioa aldatu egiten dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Urrearen **zenbaki atomikoa** -urre atomoaren nukleoan dagoen protoi kopurua- 79 da eta, beraz, urre atomo neutro baten elektroi kopurua ere 79 da. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 eta 40 **zenbaki atomikoak** dituzten elementuak errutinazko analisietan modu azkar eta errazean azter daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arma atomiko** (5); **bonba atomiko bat** (4)
>
> **ahalmen atomikoa agerian** (4); **atomikoa garatu zuen** (3); **atomikoa sortzeko** (3); **bonba atomikoa garatu** (3); **energia atomikoa** (7)
>
> **arma atomikoak egiteko** (3); **bonba atomikoak egiteko** (3); **formula atomikoak** (4)
>
> **atomikoaren nazioarteko agentziak** (17); **atomikoaren nazioarteko agentziako** (12); **atomikoaren nazioarteko agentziaren** (12); **atomikoaren nazioarteko agentziari** (3); **bonba atomikoaren** (11); **energia atomikoaren nazioarteko** (49); **iaea energia atomikoaren** (34); **indar atomikoaren nazioarteko** (5); **irango energia atomikoaren** (3)
>
> **arma atomikoen** (5); **bonba atomikoen** (3)
>
> **atomikorako nazioarteko agentzia** (4); **atomikorako nazioarteko agentziak** (7); **atomikorako nazioarteko agentziako** (13); **atomikorako nazioarteko agentziaren** (5); **atomikorako nazioarteko erakundeko** (6); **energia atomikorako batzordeko** (3); **energia atomikorako nazioarteko** (40); **irango energia atomikorako** (3)

---

atomismo **1** *iz* mundua atomoen zorizko loturaz osatua dagoela dioen filosofia-doktrina.

Tractatus-ean, hortaz, **atomismo** logiko osoan bezala, izenaren zentzua bere erreferente erreala da. Markos Zapiain

Filosofiaren eta Zientziaren Historian **atomismoak** gorabehera ugari izan ditu, eta eskolastikoek horren aurka jo zuten bortizki. Xabier Kintana

Lukrezioren **atomismoa** desjarraia da eta hutsunea edozein gauza motaren barruan sartzen du: ez dago hutsuneak barnatu gabeko materiarik, ez materiaz hornitu gabeko hutsunerik. Xabier Amuriza

2 *atomismo logiko*

Tractatus-ean, hortaz, **atomismo logiko** osoan bezala, izenaren zentzua bere erreferente erreala da. Markos Zapiain

---

atomista *izond* atomismoaren aldekoa.

Atomistengandik oso urrun dagoen Gersonidesek uste du kasu horretan **atomistek** dutela arrazoi, eta ez aristotelestarrek. Xabier Kintana

"Zuek, fededunek, ez duzue ulertzen Epikuro **atomista** eta materialistaren lasaitasuna, ataraxia. Piarres Aintziart

Ni hitzaurre honetan kontrako tesia justifikatzen saiatuko naiz: Lukreziorengan poesiak bakarrik dauka gaitasuna, filosofia **atomistak**, erromatar munduan zabaltzerakoan, planteatzen zion zenbait problema harmonizatzeko. Xabier Amuriza

---

atomistiko *iz* atomismoari dagokiona.

Ez zientzien historia, baizik eta ezagupen inperfektuena, gaizki oinarritutakoena, sekula lortu ez dutenak bizitza tematiko batean barrena zientifikotasunaren forma (alkimiaren historia kimikarena baino gehiago, arimadun espirituena edo frenologiaren historia fisiologiarena baino gehiago, gai **atomistikoen** historia eta ez fisikarena). Xabier Arregi

---

atomizagailu *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi) iz* atomizatzeko tresna.

Jokoz joko, konfetiak eta hari fin eta koloretsuak jendeen gainera botatzeko aukera ematen duen **atomizagailuak** segitzen dute izaten jokoen arteko gustukoenak, urtero bezala. ETC-prentsa

Atomizagailurako likido poteak izan daitezke nikotinadunak edo nikotina bakoak, norberaren beharren arabera. ETC-prentsa

Atomizador: **Atomizagailua** ETC-zientzia, zuzenbidea

Errotore edo **atomizagailu** tangentziala tresna pikortatzaile gisa sortu zen hasiera batean. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

atomizatu *(ETCn **315** agerraldi, horietatik **163** azken sei urteetan)* **1** du *ad* atomoetan edo zati oso txikietan eratu.

Zurra-bainuaren lagin bat lortu, esperimentu-laboratoriora joan, eta aproba egin nuen 1: 10.000 soluzio bat **atomizatzen** erradiografia-xaflaren lagin bat agerian zegoen kamera beltzean. Juan Garzia

Atomizatua dago kultura bakoitza, **atomizatuak** daude kultura bakoitzeko alorrak. Anjel Lertxundi

Emaitza, beraz: inportantea indibiduoa omen da (ez zein herritakoa, etab.); baina gero indibiduook, kaosean **atomizatuak** ez daitezen ibili, lotu beharra dago ordena batean, eta, kuriosoki, hori absolutua izatea nahi da. **Atomizatutako** konpainien antzerki produkzio eta birek hainbat arazo izaten dituzte zirkuitu koordinazio, banaketa eta formatuetan, errentagarritasuna bilatu behar dutelarik. Joxe Azurmendi

2 (era burutua izenondo gisa)

Txostenaren egileek egiaztatu dutenez, EAEn eraikuntzakoa oso sektore bizia izan da azken 20 urteotan, nahiz eta, aldi berean, oso sektore **atomizatua** ere badela aitortu: 2001. urtean, eraikuntza alorrean zebiltzan 21.000 enpresetatik ia guztiek, %94, hamar langile baino gutxiago zituzten. Berria - Euskal Herria

---

atomizazio *iz* atomizatzea.

Oro har, **atomizazio** bat gertatzen ari dela iruditzen zait, beste literatura askotan bezala. Berria - Kultura

Eskubideak banakoetara mugatu dituzte eta **atomizazio** horren ondorioz estatuko heinera heldu arte, kolektibitate ororen aipamena desagertzen da. Berria - Euskal Herria

Erosleen eta saltzaileen **atomizazioa** gertatuko da (hau da, erosle eta saltzaile asko baina txikiak, merkatuan eragiteko ahalmenik ez dutenak). Iñaki Heras

Halere, sortzen ari dira, apurka-apurka, estatuen arteko **atomizazioa** gainditu nahi duten ekimenak: komunistak eta haien aliatuak biltzen dituen Europako Ezkerreko Alderdia sortu zen maiatzaren 8an eta 9an Erroman. Berria - Mundua

Kapitalaren **atomizazioa** dela medio, kapitalaren jabeek indarra galdu dute, eta aitzitik enpresaren goi mailako zuzendarien indarra areagotu egin da. Iñaki Heras

Azken hamar urteotan behikien ustiapenak ez dutela behera egin onartu zuen Samaniegok, baina arazorik larriena ez dela konpondu gaineratu zuen, **atomizazioarena**, alegia. Berria - Ekonomia

Pentsalariak bere kasa aritzen dira, **atomizazioa** da nagusi alor horretan eta ondorioz, berez kalitatezkoak diren lan horiek izan lezaketen ahalmena bidean galtzen da. Berria - Euskal Herria

Horrez gain, kantonamenduetarako hauteskundeetako boto abertzalearen igoeran, **atomizazio** politikoa gainditzeko beharra azpimarratzen du LABek, eta horretarako sindikatuak bateratasunerako kontzientzia kolektiboa bultzatzeko asmoa agertzen du. Berria - Ekonomia

---

atomo *(ETCn **24.487** agerraldi)* **1** *iz* gai bakun baten zatikia, haren ezaugarriak atxikitzen dituen txikiena.

Puntu horretan 3.000 milioi **atomo** sartzen dira. Pello Salaburu

Unibertsoaren **atomoek**, haiek diotenetik, nahitaez baturik edo banaturik izan behar dute, eta badira aldizka baturik eta aldizka banaturik izaten direnak. Xabier Kintana

Askoz ere gehiago ikasi dugu **atomoaren** egituraz, materia bera ere zer den "hurbilagotik", horrela esan badaiteke behintzat, ikusiz. Pello Salaburu

Atomoen artean, Hidrogenoak du masarik txikiena; ez da, ordea, dauzkagun politikoen masa entzefalikoa baino txikiagoa. Anjel Lertxundi

Badiote, halaber, ataltxo horiek ez dutela kopuru mugaturik, Epikurok eta **atomoen** doktrinari atxikiriko beste batzuek uste zutenaren aurka. Xabier Kintana

Idoloan eta fetitxean sinestea nagusitasun-ikurra da; Demokritok edo Epikurok bezala **atomoetan** sinestea, ergelkeriaren seinale! Josu Zabaleta

Arimari doakionez, ez datoz bat: iritzi nagusiaren arabera, gizakia, adibidez, osatzen duten **atomo** guztietarik bakar batean kokatzen da; eta osotasunari arimadun deitzen zaio, hain zuen, **atomo** horrek hor parte hartzen duelako. Baldin Jainkoa gorputza balitz -diote-, nahitaez jainkotasunaren egiazko kontzeptua gorputz horren substantzia (bakun) guztietan etzan behar luke, erran nahi baitut, horren **atomo** bakoitzean, edo bestela, gorputz horren **atomo** bakar batean. Xabier Kintana

Espazioan **atomo** noragabetu bat nola, halatsu durduzatzen zen. Patxi Zubizarreta

2 irud/hed

Jendetza kontagaitz eta kasik betidanikako horren **atomo** bat baizik ez naiz, ibai luzearen xorta bat. Piarres Aintziart

Higatuz joan zinen, eta orain ezin dut zure **atomo** bat bera ere aurkitu. Eider Rodriguez

3 (hitz elkartuetan)

Japoniako bi hiri **atomo**-bonba batek desegin zituenean bakarrik geratu zuten gerra. Pello Salaburu

Jeneralek beren herrien gainean jaurtiko dituzte **atomo** bonbak. Koro Navarro

Industria astunak, armamentu ikaragarria eta **atomo**-bonba izan arren (oso garestiak, jakina), gauza askotan India ez da bizi XXI gizaldian. Gotzon Garate

Halabeharra da-eta! ez bonbillarik, ez motorrik, ez **atomo**-energiarik, ez kalkulagailurik, ez narkotikorik: tira, goazen denok oihanera! Joxe Austin Arrieta

4 ***atomo-bonba*** ik **bonba atomiko**.

Japoniako bi hiri **atomo-bonba** batek desegin zituenean bakarrik geratu zuten gerra. Pello Salaburu

Eta une berean Mendebaldearen beraren patua Moskuko gizon baten eta Washingtongo beste baten hatz-puntan zegoen, botoi bat sakatu eta **atomo-bonba** lehertaraz baitzezaketen. Iñaki Mendiguren

Jeneralek beren herrien gainean jaurtiko dituzte **atomo bonbak**. Koro Navarro

Industria astunak, armamentu ikaragarria eta **atomo-bonba** izan arren (oso garestiak, jakina), gauza askotan India ez da bizi XXI gizaldian. Gotzon Garate

5 ***atomo hidrogenoide*** *(corpusean ez dago; ETCn **55** agerraldi)*

Germanioko elektroi bat e kargako zentro positibo baten inguruan higitzen da, oinarrizko egoerako **atomo hidrogenoidea** osatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Atomoa aztertzerakoan, kasurik sinpleena hidrogeno atomoa edo **atomo hidrogenoidearen** kasua da. Azken finean, elektroi bakarra duten atomoak. ETC-entziklopedia

6 ***atomo kitzikatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Atomo kitzikatu horien bizitza luzea bada, ia monokromatikoa izango da erradiazioa; espektro-lerroa, berriz, zorrotza. ETC-zientzia, zuzenbidea

Denbora kronometratzeko, hobea da **atomo kitzikatu** baten "bibrazio" natural eta zehatza neurtzea. ETC-entziklopedia

7 ***atomo-masa*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* ik **masa atomiko**.

Masa atomikoa edo **atomo masa** elementu kimiko jakin bateko atomo batek duen propietatea da. Normalean masa atomikoaren unitateetan (uma) neurtzen da. Askotan pisu atomiko esaten zaio, era ez-egokian, masa gorputzaren propietatea baita eta pisua, grabitazio grabitatearen araberakoa. ETC-entziklopedia

8 ***atomo-nukleo*** *(corpusean ez dago; ETCn **102** agerraldi)* ik **nukleo atomiko**.

Atomo-nukleoa edo nukleo atomikoa atomo baten erdigunea da, non bere masa guztiaren % 99,99 baino gehiago dagoen. ETC-entziklopedia

Hemen dena duk lanbroa, gruma, anabasa, nahaspila, elektroi-bonbardaketa, **atomo-nukleorik** ez zagok hemen. ETC-literatura, saiakera

Aita berriki erretiratu da Cal Techeko irakaskuntza aktibotik, eta **atomo nukleoaren** egituran eta kimika estruktural teorikoan zentratu du zientzia-jarduna. ETC-literatura, saiakera

Nukleoiak **atomo-nukleoak** eratzeko elkartzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Funtsean **atomo nukleoak** berehala galtzen ditu bi elektroi helio-katioi ionizatua neutralizatzeko. ETC-entziklopedia

9 ***atomo pisutsu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Rutherford-ek, talka atomikoen bitartez, egiaztatu zuen hidrogeno-nukleoa nitrogenotik lor zitekeela. Bertatik, hidrogeno-nukleoa **atomo pisutsuagoak** eraikitzeko funtsa zela ondorioztatu zuen, horregatik, hain zuzen, esleitu zion hidrogeno-nukleoari "lehena" izena. ETC-entziklopedia

10 ***atomo-zenbaki*** *(corpusean ez dago; ETCn **167** agerraldi)* ik **zenbaki atomiko**.

Atomo-zenbakia, **atomo zenbakia** edo zenbaki atomikoa atomo batek atomo nukleo nukleoan duen protoi kopurua da. ETC-entziklopedia

Fabrikatzaileek diotenez, irudi horretan agerrarazi daitezke, adibidez, **atomo zenbaki** txikiko gaiak, arma edo lehergai plastikoak, adibidez. ETC-prentsa

4.22 Batzuetan, bi atomo motaz osatutako aleazioetan, komeni da zentimetro kubiko bakoitzeko **atomo-zenbakiaren** (N1) araberako kontzentrazio espezifikoa duen elementu baten pisu-ehunekoa zehaztea (C1). ETC-zientzia, zuzenbidea

Aktinioa elementu kimiko bat da, Ac elementu kimikoen zerrenda ikurraren arabera ikurra eta 89 **atomo-zenbaki** zenbaki atomikoa dituena. ETC-entziklopedia

Gas nobleen ugaritasuna unibertsoan murriztu egiten da haien **atomo-zenbakia** handitu ahala. ETC-entziklopedia

11 ***hidrogeno atomo***

Kapitulu honetan aurrerago ikusiko dugunez, tinpanoa zentimetro baten mila milioiren bat mugitzeak sortzen du soinu-sentipena, eta **hidrogeno atomo** baten diametroa baino askoz txikiagoa da neurri hori. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **atomo bakar** (3); **atomo bakoitzean** (5); **atomo bat** (5); **atomo baten** (7); **atomo bonba** (5); **atomo horiek** (5); **atomo horietako** (3); **horren atomo** (4); **karbono atomo** (4); **mila atomo** (3)
>
> **atomoaren egitura** (4); **atomoaren egituraz** (3)
>
> **atomoen existentzia** (3)

---

atomobakar *(corpusean ez dago; ETCn **62** agerraldi)* *izond* atomo bakarra duena.

Horietan karbonozko atomoak espazioan egitura bitxia hartzen dute (hodiak, **atomobakarreko** lodiera duten xaflak...), eta lortzen diren materialek oso propietate bitxiak dituzte. ETC-prentsa

Translazio-energia (--) presioarekiko edo masa molarrarekiko independente da, gas ideal **atomobakar** baten kasurako, eta, beraz: ETC-zientzia, zuzenbidea

Gas ideal **atomobakar** baten abiadura-banaketak (19-28) ekuazioa honako forma orokor hau dauka: ETC-zientzia, zuzenbidea

---

atonal *izond* musika-lanez mintzatuz, sistema tonalaren arabera antolaturik ez dagoena.

Labur-labur doazen 7 zatikiak, jotzeko modu desberdinak, erritmoak eta estiloak maisutasunez tartekatu zituzten, erraza ez den egungo musika, batzuetan **atonala**. Berria - Kultura

---

atonalismo *iz* musika atonala sortzeko joera.

Ibarrondoren musika **atonalismoaren** ildotik doala esatea ez da nahikoa, berezia delako bere estiloa, apenas inorekin parekatzeko modukoa. Berria - Kultura

---

atondo *iz* ate ondoa.

Iritsi ginen orduko, Grosrouvrek ohartarazi zidan **atondoa** ez zela zirkularra. Jon Muñoz

Kanpoan, **atondoan**, paretaren kontra geratu zen, arnasa sakon hartzeko. Iñaki Mendiguren

Atondoan zutik geratu eta begiak kliskatuz arakatu zuen bulegoa. Anton Garikano

Elkarri adi-adi begira zeuden bitartean, Harryk Dudleyren ahotsa entzun zuen behean, **atondoan** zera esaten: [...]. Iñaki Mendiguren

Atondoko lore-saltokiaren aurrean gelditu ziren. Lopez de Arana

Hurrena, etxea eskobatu, eta **atondoko** zorua garbitu zuen. Patxi Zubizarreta

Dudley ahatea bezala ibiliz etorri zen **atondora**, bere ile horia buru handian liso zanpatuta, lepoko begizta ozta-ozta ikusten zitzaiola kokospe ugarien azpian. Iñaki Mendiguren

Ama bere ohean etzan eta lokartu orduko, oin-puntetan **atondora** hurbildu nintzen noiz iritsiko zinen entzutearren. Eduardo Matauko

Osaba Vernonek gerritik heldu eta Harry **atondora** bota zuen. Iñaki Mendiguren

Hasia zen Osaba Nat-ekin fidatzen, hala iruditzen zitzaidan, eta handik gutxira **atondotik** bainugelarako bidean gindoazen biok. Oskar Arana

Atondo eliptiko erraldoiko mosaikoaren gainean ipini zuen laukoteak aulki gurpilduna; non, eta monumentu historikotzat sailkaturik zegoen hartan. Jon Muñoz

Erietxeko **atondo** handiko marmolezko eskaileretan gora, Ed Thatcher dardarka zihoan. Lopez de Arana

Bihotza bizi-bizi taupaka ari zitzaion sarrera nagusira joateko **atondo** iluna zeharkatzean. Iñaki Mendiguren

---

atondu, atontzen **1** du *ad* prestatu, antolatu.

Loreak **atondu** zituen ostera, baserritarrak eskopeta muntatzen zuelarik. Koldo Izagirre

So egin zidan zorrotz, eskuak erretiratu nituen arte, isilik gelditu zen, ilea **atondu** ere gabe, isilik, baina madarikatu ninduen. Joxe Austin Arrieta

Zetazko bata gerrian lotu, ile nahasia apur bat **atondu**, eta atea ireki du. Patxi Iturritegi

Abraham bera bizi-bizi joan zen ikuilura, eta, zekor guri eta gizen bat aukeraturik, morroi bati eman zion; honek berehala **atondu** zuen. Elizen arteko biblia

Beretzat tunika zirtzil eta latz bat **atondu** zuen, eta uhala kendu eta soka bat hartu zuen gerrikotzat. Askoren artean

Etxe bat **atondu** zioten, bertan gaua igarotzeko. Karlos Zabala

Tira, Um Husain, **atondu** iezaiezu etxea, nahiz eta hauen mailarako eskasegia izan. Patxi Zubizarreta

Zeren ohea emakume baten eskuek baizik ezin **atondu** dezaketen moduan ikusten baitzen. Jon Alonso

Gero orbela bordako zoruan hedatu dute, eta, minutu batzuen buruan bi lagun etzanda egoteko moduko tokia **atondu** dute. Pello Lizarralde

Maindirea **atondu** nion kokotsaren parean. Anjel Lertxundi

Emakumeak keinu adeitsua egin, eta maindirea **atondu** zion kokotsaren azpian. Anjel Lertxundi

Ganbarako leihoetako batera urreratu nintzen, eta hura zabaldurik, eguzkiaren goiera neurtzeko **atondu** nuen astrolabioa, horrexetarako da-eta, beste zeregin batzuk ahaztu barik, tresna miragarria. orain sei erakusketa-solairu **atondu** dituzte, arranpen bidez lotuak. Edorta Jimenez

Goebbelsen eta Henry Forden arteko premiazko bilera **atondu** beharko zuten New Yorken, hasteko, lehorreratu bezain prest. Harkaitz Cano

Lana egiteko **atondu** dituzun fitxa guztiak ongi begiratu. Askoren artean

Borrokarako **atondu** genizkion gazteluek eta oholezko hesiek, ontziaren beraren gorputzarekin batera, belarena egiten baitzuten, oihalezko edozein zapik baino sendoago. Edorta Jimenez

Mastan **atondu** berria zen garabiaren beso luzea karelaren parera agertu zen eta harexeri begira lotu nintzen. Edorta Jimenez

Makina du, eta beharbada ezin izango zenuke eskifaiarik ez armarik egokiro **atondu**. Edorta Jimenez

Finean, den-dena nik **atondu** eta xedatu bezala.Egungo Ilustratuek dioskutenez, Herder, Humboldt, Victor Hugokøøø, "mende erromantikoak" **atondu** omen zuen Euskal Herriaren irudia. Aingeru Epaltza

Denen artean berehala prestatu eta **atondu** zuten gosaria. Aitor Arana

2 *mahaia atondu*

Delmonico jatetxeko zerbitzariburua **mahaia atontzen** ari zen Graustark-entzat eta Bohemiako Errege Itsuarentzat eta Enrike Printze Nabigatzailearentzat eta... Lopez de Arana

Amak zizpuru egin zuen eta **mahaia atontzen** hasi zen. Anjel Lertxundi

Kafea aipatu zuen, baina **mahaia atonduta** zeukan bazkari itxurazko bat egiteko. Javi Cillero

Mahaia atondua dago, alfonbrak zabalik: jan eta edan ari dira denak. -Zutik, gudalburuok, prestatu babeskiak! Elizen arteko biblia

Mahaia atonduta zegoen ordurako, esne beroa katiluetan, azukrea, eta esertzeko hurreratu zen, baina hiru katilu kontatu zituen, hiru koilara, eta eseri beharrean leihorantz joan zen berbarik esan gabe. Joseba Sarrionandia

Gainerakoak zutik daude, nola ari diren begira, beraientzat **mahaia atondu** arte. Monika Etxebarria

Mahaia atontzen ziharduen. Joxe Austin Arrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atondu behar (4); **atondu dituzte** (4); **atondu duen** (4); **atondu dute** (11); **atondu duten** (3); **atondu nituen** (4); **atondu zioten** (3); **atondu zituen** (6); **atondu zuen** (21); **atondu zuten** (6); **handiz atondu** (3)

ondo atondua (4)

atonduko dituzte (3); **atonduko du** (3)

ondo atonduta (3)

urdaiz atondutako janariak (4)

atontzen ari dira (6); **atontzen ari zela** (4); **atontzen ari zen** (6); **atontzen hasi** (3); **atontzen zituen** (6); **mahaia atontzen** (3); **parkea atontzen** (4)

---

atondura *iz* atontzea.

Horrek, eta mahai inguruen **atonduraz** eta funtzionamenduaz ozen protestatu zuten bakanetakoa izanak, deigarri egiten zuen mazedoniarra. Edorta Jimenez

---

atonia **1** *iz* organo batek uzkurtzeko duen gaitasunaren galera.

Nor eta Hauster, beti **atonia** moduko batean irauten zuena, asaldatuta. Iñaki Iñurrieta

2 irud/hed

Alabaina, finantza-susperraldi horrek ezin du herrialde gehien-gehienen bizimoduaren hondamena eta herrialde askoren inbertsio-**atonia** iraunkorra ezkutatu (Txile da horretan salbuespen nagusia). Koro Navarro

---

atono *iz* azenturik ez duena; tonurik ez duena.

Arrazoi dugu, dudarik gabe, esaten badugu latinezko...,... formapean agertzen dela frantsesez, a oro e bilakatu ohi delako egoera jakin batzuetan, hitz bukaerako e **atonoa** desagertu ohi delako eta abar; baina esatea a m e, e m... eta abarreko erlazioak direla identitatea osatzen dutenak arrazoiak azpikoz goratzea da;... egokitasunaren izenean hain zuzen bilakatu da a hori e, hitz bukaerako e **atonoa** desagertu eta abar. Isabel Arrigain

Hiri berean ez, ez! Pareta **atono** horien artean bera ahanzten ez duen hiri anker batean barna dabil Autodidakta. Monika Etxebarria

---

atontze *iz* prestatzea, antolatzea.

Fernando Artola Bordari eta Joxe Mari Aranalde laguntzaile zituela, Xalbadorren bertsoak jaso, transkribatu eta **atontzeaz** arduratu zen Zabala orduan. Berria - Kultura

Egia esan, nire leihotik bulego berria ireki aurretiko **atontze**-lanak egiten hasi zirela ikusi nuenean, mesfidantzaz begiratu nion ETTari, eta ziur nengoen handik ez zela ezer onik aterako. Iban Zaldua

Carlosek, hasieran, katabuta egongelako mahai luzearen gainean **atontzea** pentsatu zuen, baina azkenerako onartu zuen altuegi geldituko zela horrela Napumoceno jauna. Bego Montorio

Dakizunez, ez da erraza ez bat eta ez bi **atontzea** gauzak. Juan Garzia

Gutxiagorekin irtetea ez da seinale ona, diskurtsoaren arrasto gutxienekoa **atontzeari** uko egiten baizaio, ezinagatik edo hala aukeratuta. Andoni Egaña

Behar dituen tresnak konketa gainean jarri eta ilea **atontzeari** ekin dio. Eider Rodriguez

---

atopiko *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi)* **1** *izond* topikoa, ohikoa ez dena.

Onarpen terapeutikoa, etsipen instituzionala, heriotza esperimentala, gerra sentimentala, eromen konstituzionala, poz neuroleptikoa, bake termodinamikoa, unibertso antimateriala, bortizkeria **atopikoa**. ETC-literatura, saiakera

Atopikoa omen zen, espezialistaren arabera, handik hiru astera. ETC-literatura, saiakera

Europan elikagaien alergiaren prebalentzia %1,4-2,4 artean dago gaur egun helduetan, 0,3-7,5 artean umeetan eta %10 inguru pertsona **atopikoetan**. ETC-prentsa

Asma **atopiko** edo alergiko larria dutenek beste botika bat dute atzotik: Xolair (omalizumab). ETC-prentsa

Dituen ezaugarrien artean atenporalitatea, esentziaren bila joatea, eta **atopikoa** eta akritikoa izatea daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

IgE antigorputzek bideratutako berehalako hipersentikortasuna nagusi denean, gaitz horiei alergia edo atopia ere deitzen zaie, eta erreakzio horiek izateko joera duten banakoei **atopiko** deritze. ETC-zientzia, zuzenbidea

[ETC-telebista<->Izarren hautsa, Goenkale, 2015]OLAIA: Lasai, hobea aurkitu dut. Bilan Laborategiak azal **atopikoentzako** krema berria egin du. Ez du parabenorik eta merkeago aterako zaigu.

Sindromeak osagai genetiko sendoa dauka; familian alergiak izatearen historia klinikoa sindrome **atopikoaren** adierazgarria izan daiteke. ETC-entziklopedia

2 ***dermatitis atopiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Dermatitis atopikoa -ekzema ere deitzen zaio- azaleko arazo kroniko bat da. ETC-prentsa

Ume txikietan, akaroek **dermatitis atopikoak** sorraraz ditzakete. ETC-prentsa

Dermatitis atopikoa edo ekzema ere janarien alergiagatik ager daiteke. ETC-prentsa

Gaixotasun alergiko ezagunenak asma, errinitisa, konjuntibitisa, **dermatitis atopikoa** eta jakiekiko alergia dira. ETC-prentsa

Dermatitis atopikoaren aurkako botika aurkeztu dute Bilbon. ETC-prentsa

Bada **dermatitis atopikoa** izena duen azaleko ohiko gaitz bat: azala are gehiago lehortzen zaie horiei, eta, halako kasuetan, babesteko krema erabiltzeaz gain, garrantzitsua da ondo hidratatuta egotea. ETC-prentsa

3 ***ekzema atopiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ekzema atopikoa: umeen artean hain ohikoa den azaleko gaitz honen sintomak nabarmen okertzen dira hotzaren, hezetasunaren, hainbat berokuntza sistemarekin (batik bat artifizialen) eta artilearekin edo ileki ehunekin kontaktua izanez gero. ETC-prentsa

---

atorra *(ETCn **24.487** agerraldi)* **1** *iz* alkandora; emakumearen alkandora.

Bere gain du errubilarien **atorren** garbitzea, ez baita lan txarra. Herria

Eta egoera hartan erantzi egin nuen jakanarrua, tentuz, arean harexen adur onak salbatu gintuelakoan,benerazioz,eta benerazioz gorde nuen jantzi miragarria **atorraren** azpian. Edorta Jimenez

Atorrak eta galtzerdiak erosten zizkion. Xabier Montoia

Atorrako lepoa zabal-zabal zeraman eta gorbata soka bat balitz bezala lotua. Fernando Rey

Eta hantxe mantxuak ere, Errusiaren eta Txinaren arteko mugako herri guztiak emirraren esanetara altxatu izan balira bezala, kopeta eta lokiak ile-moztuak, adatsa zintzilik mototsean bildua, tunika luzea, gerrikoa zetazko **atorraren** gainean gerruntzea estutzen, txano arrautza formakoa, gerezi-koloreko satinez egina, ertzak beltz, zerrenda gorri. Karlos Zabala

Horren truke, plastikozko kartatxo bat **atorrari** estekatu zioten: 'visitor' hizki lodiz idatzirik. Ramuntxo Etxeberri

Gizonak mugimendu zabal bat marraztu zuen aulkiaren eremuan, **atorrako** bigarren eta hirugarren botoia askatuz. Itxaro Borda

Alegia deus ez, **atorraren** petik, Maien titi puntekin jostatzen nintzen, ene maitatzeko urrikia zeukan emaztearen eskuak neure gerriko larru gunea etengabe, jadanik atseginez dardara zebilkidan sabelperantz, ikarazten zuela: anitz fereka eta hitz gutxi. Itxaro Borda

Rambuteau kalearen izkinan, nobedade denda handiaren apal hutsen artean, enplegatu batzuk zeuden zutik; erakusleihoa prestatzen ari ziren ondo jantzita, txalekoa soinean, galtza estutuak, eta apaindura luze liluragarriak **atorraren** eskumuturretan. Karlos Zabala

Beha geratu zitzaion: zetazko **atorran** bularretakoaren farfailak nabarmentzen ziren, eta berauen azpian, bular sendoak; gero koadroari: baso baten irudia zen, udazkeneko irudi inpresionista (horixe uste zuen bederen), eta kolore biziak zituen. Migel Angel Mintegi

Mantarrak: hemen, emakumeen **atorrak**. Patxi Ezkiaga

Gogoan dut **atorraren** eskumuturretarako ere berariaz eginarazi zituela mahuka-biki beltz batzuk. Ander Irizar

Defendatzera entseatu gabe, besoak bildu nituen sabelaren kontra, **atorraren** azpiko altxorra babestu nahirik. Aingeru Epaltza

Besoa izozturik gelditu zitzaidan, janzten hasia nintzen **atorraren** mahukaren erdi bidean. Alberto Ladron Arana

Zenbakia beso gibelean larrantzatu zioten eta, horretaz aparte, zenbaki bera uniformearen **atorrean** josi. Eneko Bidegain

Bi koilara txiki erori zitzaizkion orduan Andresi **atorraren** tolesdura batetik, bi koilara txiki urregorrizkoak. Felipe Juaristi

Andresek maoizko buzoaren azpiko **atorratik** paketea atera, zigarroa piztu, jaiki eta barrurantz uxatu ditu. Alberto Barandiaren

Niri musuka segitu zuen, eta azkenean nire **atorraren** botoiak askatu eta bularrean musu eman zidan. Fernando Rey

Apirilaren azken eguneko deialdi harrigarri hark saratarrak galtzoin eta gaueko **atorrak** soinean jalgiarazi zituen beren etxeetarik. Elena Touyarou

Zapladatxo batzuk ematen dizkio, neskak jantzita duen **atorraren** gainetik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Horrela apur bat bederen gerla gelditu zen eta soldaduak joan ziren '**atorra** aldatzera", hitz horrek erran nahi baitzuen "egun bat etxen iragaitea". Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ezkerreko behatzak alu bustian sartu zizkion, eskuinekoek zeta gorrizko **atorraren** pean bularrak bilatzen zizkiotela. Itxaro Borda

Eta geltokiko buruak kontu handiz **atorraren** mahukak eta hegalak armairuan sartu zituen, ateak ixtean harrapa ez zitzan. Fernando Rey

Algernonek, adi-adi egon baita, barre egiten du bere baitarako, eta helbidea idazten du **atorraren** eskumuturrean. Antton Olano

2 (izenondoekin)

Aurpegi fineko mutil gaztea, arras elegantea, urrezkoa izan zitekeen petenta luzeño bat beharri batean, zetazkoa iduri zuen **atorra** koloretsu batekin, galtza balus arrosa kolore batzuekin. Janbattitt Dirassar

Gizonak Lainezek baino hamar bat urte gehiago izanen ditu, berrogeita hamarren bat; jaka eta galtza grisak eta **atorra** zuria soinean, ile urdin eta sarria atzeraka orraztua. Pello Lizarralde

Niretzat ote zen opari-paperean bildurik azaldu zen zetazko **atorra** motz beltza? Joxan Elosegi

Azken sosak galtza eta **atorra** berriak erosten xahutuak zituen eta horiek zituen soinean jantzirik. Aingeru Epaltza

Bada, kiloak ondo eroateko **atorra** luzea gerrian behera eta atorraren azpian praka zabalak, zuriak, lihozkoak, janzten zituen. Edorta Jimenez

Erreketeak eta falangistak gaizki konpontzen direla, baina Zaratiegi honi berdin zaio nonbait txapel gorria edo **atorra** urdina, euskaldunen kontra joatez gerotan. Xabier Mendiguren Elizegi

Nahiz aitzinekoek ordukotzat lehengo **atorra** marratuak zokoan utziak zituzten eta **atorra** xuri lepo motzetan ari ziren, gerria zinta beltz batez inguratua, bi gazte horiek plazetan agertzen dira fantesia gehiagorekin, ongi baino ederkiago emanak, **atorra** xuri koladunetan, beso luzeak - zaharrek beso laburrak janzten zituztelarik - biloak apainduak, pilotari sotilak, neskato gazteek arrakastatuak. Michel Oronoz

Zapaten beltza pixka bat histua zaio, baina galtzak eta **atorra** ezinago beltzak ditu. Berria - Kultura

Demoen **atorra** horiak berriz agertu dira Baionako jujeen aitzinean joan den ostegun arratsaldean.. Herria

Astegunetan kotoizko **atorra** koadrodunak janzten zituen lan egiteko, basomutilenen gisakoak. Xabier Montoia

Atorra estu hark ez zion minik ematen. Gotzon Garate

Oraindik ere Santaklara deituriko eroetxean zegoen ohe zuriari estekaturik, erremedioz galkatua eta **atorra** zurbailaren azpian biluz. Itxaro Borda

Gondoleroak hagitz hankabiko alaia zirudien; **atorra** zerrendaduna eta txano xingoladuna zeramatzan, eta belarri bat falta zuen. Jon Alonso

Gero ontzia bere lekuan uzten dut, eta **atorra** zuriko irudia, Margoti gauero "A zer **atorra** itxuragabea" esanarazten dion **atorra** zuriko irudi hori oheratu egiten da berriro. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azkenean atea zabaldu, eta emakume gazte bat ikusi nuen, hanka-hutsik, gau-**atorraren** gainean martazko beroki bat jantzita. Koro Navarro

Dontsu-**atorraz** lotu baninduen ere, kontakizun barneko legea baino malguagoa dena. Anjel Lertxundi

Ene kabinatik jaikirik, itsas-**atorrean** nolabait bildua, ilunpean ninduan haztamuka hasi haien xerka; haiengana iritsi, agirien zorroa ostu, eta han ninduan limurtu atzera neure gelara. Juan Garzia

Neskak lo **atorrako** mahukan begiak lehortu eta umea besoetan hartu zuen. Koro Navarro

Eta beste guztiengan preso-**atorrak** bitxikeria barregarria bazirudien ere, berarengan ez zuen hala ematen, hain zegoen janzkia gizakiarengandik bereizirik. Jose Morales

Kirol **atorrak** hori-gorriak izanen dira. Herria

4 ***atorra has***

Herrirantz joan zen, lasai, **atorra has** , besorik gabeko barnekoa lotu gabe, bezperakoa bezain beroa izanen zela iduri zuen udako goiz hartaz gozatuz eta, erretore etxean sartu zen, guardak iratzartzen hasten zirenean hain zuzen. Elena Touyarou

Gure Joanes, gaizoak, ezarri zuen buru airea Halako aroarekin, bertzenaz ere, ez zen komeni **atorra has** ibiltzea. Eneko Bidegain

5 ***atorra hertsagarri***

Lublin-a eraman zuten eta **atorra hertsagarri** bat ezarri zioten. Koro Navarro

Atorra hertsagarriaz jantzirik eta oheari lotuta zegoen arren, erizainari beldurra ematen baitzion berarekin bakarrik gelditzeak. Jose Morales

6 ***atorra hutsean***

Figura bat agertua zen, mamu baten antzo, **atorra hutsean** . Aingeru Epaltza

Atorra hutsean dago, tirante malbekin; atorraren mahukak ukondoaren gainetik ditu jasoak, ez gorago... Monika Etxebarria

Galtza eta **atorra hutsean** da presoa, eta hogeitaka urte izanen ditu. Xabier Montoia

7 ***atorra hutsik***

Morroia txaparroa zen, **atorra hutsik** zebilen eta oso sendoa zen. Alberto Ladron Arana

Ondotxo daki Harvey-k odolaren ibilia aurkitu zuela; baina nahiago du ohartarazi **atorra-hutsik** paseatuz igarotzen zituela gizon handi horrek bere loezinak, idazkera txarra zuela, eta Londresko medikurik ospetsuenek ez zutela emango sei sos haren errezetetariko bategatik. Juan Garzia

8 ***belartze atorra*** *iz*

Belartze-atorra : oihal finez egina. Patxi Ezkiaga

Gainerako guztia, honetara: **belartze-atorra** , ilagin gozo-finezko galtzak eta oinetako leunak, eta astegunetan, belori finez jantzita, bere burua ederresten zuen. Patxi Ezkiaga

9 ***bortizko atorra***

Nor hark keinu bat egin zielarik, Héracliusen gainera jauzi egin eta istant batean jarri zioten **bortizko atorra** ; eta beltzezko jaunari begiratu zioten. Josu Zabaleta

10 ***bortxa atorra***

Azken egunetan **bortxa-atorra** jarri behar izan omen zioten, zurrumurruek diotenez. Matías Mujika

Pirateria [...]: **Bortxa-atorrarik** gabeko salerosketa, Jainkoak egin bezalakoxea. Xabier Olarra

11 ***ohe atorra***

Ohe-**atorra** garden batekin apaindurik irudi batean, ligeta-eustekoa eta galtzerdi beltzak jantzita beste batean, belaunetara arteko bota bernizatuekin hurrengoan, baina laugarren orrialdetik aurrera Rory hutsa eta biluza zen. Oskar Arana

Jantzitegira sarturik, kapela zintzilikatu zuen, eta, hurrengo, bizkarra makurtu zuen feltrozko txapinak hartzeko, lehendabiziko dantza-pausoan kokatuta baitzeuden lurzoruan, ohe-**atorraren** azpian. Mirentxu Larrañaga

Edozerk nahasten zion urdaila, baita erregalizak eta gaxiek ere, baina nik bakarrik nekien ohe **atorrak** erabiltzen zituela udan, izena gorriz brodatua zutenak. Koro Navarro

Zakutxoetako batean errubloak bakarrik sartzen dituzte, beste batean berrogeita hamar kopekeko txanponak, eta hirugarren batean hogeita bost kopekekoak, nahiz eta itxuraz badirudien komodan arropa zuria baino ez dagoela, eta ohe-**atorrak** , eta harilkoak, eta beroki sareturen bat... Jose Morales

12 ***hil atorra*** *(orobat* ***hilatorra****)*

Tira, hobe dut **hil-atorra** janztea. Iñaki Mendiguren

Goio popara joan zen, aparrezko ur ildo zuria desegiten zen han atzean, iraganaren aparrezko **hilatorra** balitz bezala. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

artilezko atorra (2); **atorra arrosa** (4); **atorra azpian** (2); **atorra bat** (9); **atorra bera** (2); **atorra berde** (2); **atorra berriak** (2); **atorra besterik ez** (2); **atorra egin** (2); **atorra erantzi** (2); **atorra eranzten** (2); **atorra eta galtza** (3); **atorra gorri** (4); **atorra horia** (2); **atorra horiak** (2); **atorra hutsean** (3); **atorra hutsik** (2); **atorra jantzi** (4); **atorra jantzian zetozenak** (2); **atorra jantzita** (3); **atorra luze** (5); **atorra luze holandarra** (3); **atorra mehea** (3); **atorra motz** (2); **atorra urdin** (3); **atorra urdina** (4); **atorra urratuaren** (2); **atorra urratuz** (3); **atorra veneziar** (2); **atorra veneziarra soinean** (2); **atorra xuri** (4); **atorra zuri** (7); **atorra zuria** (8); **atorra zuriak** (2); **atorra zuriaren** (2); **atorra zuriko** (2); **atorra zuritan** (2); **atorra zuriz** (2); **belartze atorra** (2); **bere atorra** (7); **beren atorra** (3); **bi atorra** (2); **ero atorra** (2); **galtza eta atorra** (2); **galtzak eta atorra** (4); **gau atorra** (2); **gorri eta atorra** (2); **hamar atorra** (2); **hil atorra** (2); **hogeita hamar atorra** (2); **istupez atorra** (2); **kotoizko atorra** (3); **lo atorra** (2); **ohe atorra** (12); **ohe atorra jantzita** (3); **preso atorra** (2); **soinean zituen atorra** (2); **zetazko atorra** (4)

atorrak soinean (2); **ohe atorrak** (2)

atorrako sakelatik (3)

atorraren artean (2); **atorraren azpian** (8); **atorraren eskumuturrean** (2); **atorraren gainean** (3); **atorraren gainetik** (2); **atorraren mahukak** (4); **atorraren poltsikora** (2); **eskua atorraren** (3); **eskua atorraren poltsikora** (2); **jaka eta atorraren** (2); **nire atorraren** (2)

---

atorrabako *iz* arlotea.

Herri matxinatuaren erdian, nik ere Élisée Reclus bat izan gura nuke: fusila sorbaldan bat eginda Komunako **atorrabakoekin**, baina gizatasuna ezeren gainetik baloratzen dudanez anarkista konsekuentea izan gura nukeenez hiltzea gorroto dudanez, bala barik eroango nuke. Koldo Izagirre

---

atorrante *iz* lotsagabea, mutiria.

Gainerakoan, **atorrante** hura nire bizkarrari pega-pega eginda ikusiko nuen Antjerekiko une intimoetan ere. Fernando Rey

Emaztearena eta seme **atorranteena** ez zen beste pisu bat zeukan, Gran Vian, ez oso handia baina bai luxuzkoa. Sonia Gonzalez

Beste pixka batean itxarongo dute badaezpada begirale biek, isiltasun bare hori egiazkoa dela ziurtatzeko, eta ez **atorrante** itxuratiren bat edo beste ostendurik legokeen gordelekua. Xabier Mendiguren Elizegi

Atorrante, iz. Zuri entzutea nahi duzunean hitz egiten dizun pertsona. Xabier Olarra

-Badakizu zer? Azkenean bota egin dugu Vanessa **atorrante** hori -azaldu dit garaile. Patxi Iturritegi

---

atotsi, atots, atosten deitu.

Maitasunak beste forma batzuk hartzen ditu Herio **atostean** dagoela sentitzen dugunean: forma goxoak, ia idealak, eguneroko bizitzako gatazka eta lardasketatik libre daudenak. Bernardo Atxaga

---

atrakaleku *iz* itsasontziak eta kidekoak atrakatzeko lekua.

Itsaskirria izanen da eta olatuak nabarmenak izanen dira **atrakalekuan**. Joseba Sarrionandia

Arratsaldeko zazpietan, eta ihes egitekotan ziren hamabost etoietako lehenengo taldea harrezkero **atrakalekuan** zelarik, han agertu ziren poliziak. Edorta Jimenez

Atrakalekura iritsi zenean, ia korderik gabe gelditu zen, han ez baitzegoen ez Nora izeneko belaontzirik, ez Andreasik. Anjel Lertxundi

Atrakaleku hoberenak okupatuta daude eta balea hilen hatsa hain higuingarria denez gero, ainguratzeko badiatik kanpora joatea erabakiko duzue, beste aterpe baten bila. Joseba Sarrionandia

Andreas **atrakaleku** egoki baten bila ari zen, lemari eta bela-sokei eragiten zielarik. Anjel Lertxundi

Ezezagunaren gorpua agertu zen inguruan **atrakaleku** polita zegoen. Edorta Jimenez

---

atrakatu[1], atraka(tu), atrakatzen du *ad* norbait asaltatu lapurtzeko.

Posta-mutila hil, mandoak eraman, gurdia hustu eta bidaiariak **atrakatu** dituzten ohoin batzuek. Koldo Izagirre

Helizea martxan hasi zen, eta lemaren palak abaor egin zuen, maliobra dotorea egin zuen moila trasatlantikoan **atrakatzeko**. Koldo Izagirre

Hiru mastako belaontzi bat eta bapore bi daude **atrakatuta**, eta beste biok heltzen. Joseba Sarrionandia

Atrakatzeko maniobrak iraun zuen tartean ontziburuak ez zion aldarri egiteari utzi eta, haren aginduek karraka otzandu egin zutela esan zitekeen. Edorta Jimenez

Posta-mutila hil, mandoak eraman, gurdia hustu eta bidaiariak **atrakatu** dituzten ohoin batzuek. Koldo Izagirre

Apaiz bat **atrakatu** eta zauritu zutenean titularra hau izan zen: [...] Pako Aristi

---

atrakatu[2], atraka(tu), atrakatzen du *ad* itsasontzi baten alboa kaira edo nasara hurbildu. ik **amarratu**.

Gure ondoan **atrakatu** zuen Alcázar de Toledo-k, bibaka eta mueraka zetozen erreketeak, fusilak sagarrondoaren adarrak balira bezala inarrosten. Koldo Izagirre

Sea Eagle izeneko merkatalontziak eguerdi aldean **atrakatu** du Santurtziko portuan, arazorik gabe, antza, baina ezin izan du tripulazioa lehorreratzeko baimena lortu. Paddy Rekalde

Portu ederra izango da, behin **atrakatu** ondoren edonongo haizeetatik gordean egongo zaretelako. Joseba Sarrionandia

Ez batean ez bestean geratu zen ea Maddalen egon zitekeenentz begiratzera; aurrera jarraitu zuen Scotten gabarra ubidean **atrakaturik** zegoen lekuraino. Joxemari Iturralde

Lan handia daukat nik oraindik ontzia ondo **atrakatu**, eta kotoi-balak saltzeko baimena lortu artean. Anjel Lertxundi

Baina esan dizuet guk gauzak txarto egin genituela, eta txikota botata kaian **atrakatuak** geneuzkan ontzi biak, faxistez beteak. Koldo Izagirre

Izotz hesia igotzeko lekua aurkituko duzue, istriborrez **atrakatuko** zarete, hortik ere igobidea erraza izango ez den arren. Joseba Sarrionandia

Bilboko itsasadarrean **atrakatuta** dagoen Naumon itsasontziko sotora jaisten garen bitartean imajinatu ahal dugu zer-nolako bidaia den hastekotan dagoena. Berria - Kultura

Itsasontziak behin Frantzian **atrakaturik**, Parisera doa idazlea, hara berandutxoago iritsiko den Martha Gellhornekin eta Herbert Matthewsekin batu ondoren Bartzelonara egiteko. Edorta Jimenez

Bestalde, Elge ezizeneko militante batek dirua irabazteko, banku edo posta bulego **atrakatzeaz** gain, droga trafikoaren posibilitatea proposatu zuen demokratikoki, Laxaro zaharraren bordan egin zen biltzar nagusian. Itxaro Borda

-Bankuak **atrakatzen** dituzue... Itxaro Borda

---

atrakatzaile *iz* norbait asaltatzen duen pertsona hari lapurtzeko.

"Atrakatzaile izatea baino hobea iruditzen al zaizu bizitza osoa herri honetan pasatzea, David?", esan zidan Teresak. **Atrakatzaile** mozorrotu bat Konde Zitalaren etxea

garbitzera joan zen gau batez, eta Alan Laddi leporatu zioten lapurreta. Bernardo Atxaga

Correa tenientea 1936-39 gerran Errepublikaren alde borrokatu zen baina -hau ere Herrera Sotolongoren arabera- iraultzaile itxuraren azpian **atrakatzailea** zebilen ezkutaturik, eta horrexen ospea hartu zuen. Edorta Jimenez

---

atrako *iz* norbait atrakatzea lapurtzeko.

Izan ere, deli hauek baitira New Yorkeko **atrako** eta ika-mika askoren kokalekua. Harkaitz Cano

Dirua falta zitzaien, eta inor konturatu gabe zuloa estaltzeko bide gisa **atrako** baten itxura ematea pentsatu zuten. Xabier Olarra

Horregatik, zuk eskaturiko lan hori dela kausa, gormutuen teknika ikasten ari naiz orain **atrako** batean bi txukel kalitutako pedagogo aditu ohi batekin, FIES moduloetan bainago, eta horrela besteren ezpainetan irakurri ahal izanen dut ezer entzun behar izan gabe, ezti zaporeko begietan gozatzen. Koldo Izagirre

Gaur egun, betiko **atrako** bat, inork ez dik espero. Pablo Sastre

Eta gainera pentsatzen dut biok erabaki duzuela **atrako** txiki baten itxurak egitea zuloa estaltzeko, eta horixe dela kamera korazatuan egiten ari dena. Xabier Olarra

Ez daki handik urtebetera bere gasolindegian burututako **atrako** txikia berriro egunkarietan etorriko dela, BBKren irabazi berrien ondoan. Pako Aristi

Atrako segurua atzean utzi dugu. Pako Aristi

---

atraktibo *izond* erakargarria.

Eta habeak arraildurak zituen, sakonak eta teatralak, eta hormarekin bat egiten zuen puntuan amaraun bat zeukan, **atraktiboa**, armiarmarik gabekoa. Unai Elorriaga

---

atraku ik **atrako**.

---

atrakzio 1 *iz* erakargarritasuna.

Hainbesteko **atrakzioa** sentitzen du, ezen managerrari lur azpitik ateratzeko eskatu baitio. Fernando Rey

2 ferietan eta parkeetan olgetarako ezarritako instalakuntza.

Idoiak abioa eman zion nire bizitzari, zorabioa sentiarazterainokoa batzuetan, nahiz eta, beste aldetik, berpiztu egiten ninduen, ferietako **atrakzioetan** igo eta jira-biran hasten zarenean bezala, ziztu bizian. Juan Kruz Igerabide

Errai guztiak azpikoz goiti ezarriak neuzkan, ingeniari pitzatu batek diseinaturiko **atrakzio** deabruzkoak irauliak. Aingeru Epaltza

Gero, denok berriro elkartu eta pizzeria batera afaltzera joan garenean, jendeak zein **atrakziotan** ibili garen jakin nahi izan du, eta gure sentsazioei light-egi iritzi diete. Patxi Zubizarreta

Ruche-jasogailuaren kremailera-hotsak gogora ekarri zion Foire du Trône-ko ferietan ipintzen zuten Zortzi Handia izeneko **atrakzioarena**; bagoia goi-goian zegoenekoa, alegia, edonor zur eta lur uzteko moduko jauzi handia baino lehentxeagokoa. Jon Muñoz

3 irud/hed

Batetik azukrearen gozotasuna, eta bestetik inguruko jendeak bera **atrakzio** nagusitzat ez hartzeak -noizean behin "Kaixo, Denver" esaten zioten-, horrek poza eman zion, eta pentsatzen hasi zen, Paul D ez ote zen hain gizon txarra. Anton Garikano

4 ***atrakzio parke***

Pozik dago Gabi faro aldera jo izanaz, handik **atrakzio parkera** joango dira-eta. Jokin Muñoz

---

atralaka *iz* liskarra, errieta.

Era horretan hasi ziren gure arteko **atralakarik** gogoangarrienetako zenbait. Ramon Saizarbitoria

Ohartu zen amak kontatua izango ziola Mentxurekin izandako **atralaka**. Josu Landa

---

atrapario *iz* traste zaharra.

"**Atraparioa** horrek ez du inongo ahaleginik merezi", esan zuen senarrak goiz batean, "altzari-biltegirako bidean desegingo da". Patxi Iturritegi

---

atrapatu, atrapa(tu), atrapatzen du *ad* lastertasunez edo iruzurren bidez harrapatu edo atzeman.

Baina egun haiek ere handik gutira izan zuten, mundu honetan guztiak bezala, fina eta akabantza, eta, horrela, bertze egun hura oroit dezaket, noiz eta zorigaitzak **atrapatu** eta bere egin baininduen, berehala ohartuko zaren bezala. Joan Mari Irigoien

Baina ez ote ninduten kanta haiek **atrapatu** eta bereganatu, oihu bat nuelako lotan -Rosaren heriotzaren aurkako oihua- eta oihu hari ez niolako artean biderik eman, etsiaren etsiaz, nola eman baitzion, konparazione, Jobek, bere kinka larri hartan eta bere desditxaren erdian...? Joan Mari Irigoien

Intelektualki edo razionalki, halaxe arraina sareetan, problemak berdintsu **atrapatuta** gaude denok: biolentziaren izugarriak, balioak erlatiboak direlako horrekin inor ez gaitu lasai uzten. Joxe Azurmendi

Eguzkia geratzearekin berehala geratu zen denbora ere, eta harekin batera gauza guztiak zeuden-zeudenean, higitu ezinik eta ez aurrera eta ez atzera, minutu eta segundoen artean **atrapatuta** geratu balira bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zeren, noiz eta plazerrak eta atseginak bat-batean eta ustekabean **atrapatzen** eta harrapatzen baikintuen, ba al dakizu zer errairen ziguten egin behar genuela? Joan Mari Irigoien

Azazkalak harrapatu ditu bi atzamarrak, amodioak pertsonak **atrapatzen** dituen bezala. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atrapatu arte** (3)

---

atrebentzia 1 *iz* ausardia; ausarkeria.

Zaude pixkatean, eta utziezu nere hitzei **atrebentzia** puskat hartzen eta zure bihotzondo adabakitu horretan aztarrika aritzen. Iñaki Segurola

Atrebentzia pixka bat bagenuen, bai, baina ez eskarmenturik, ezta prestakuntzarik ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Bai, **atrebentzia** hartu nuen gazteari galdetzeko ea akordatzen zen bere aitak erregalatzeko ohitura zuen tabakontzi horietaz: orduan lotsagorritu zen lehenbizikoz gaztea, zelda hartako ilun-argian ere ikusten zen. Matías Múgica

Lagun maite hori, **atrebentzia** handia al litzateke Müller irakasleari Marseillaraino laguntzeko eskatzea? Anjel Lertxundi

Atrebentzia handiegitxoa izan da, beharbada. Felipe Juaristi

-Barkatu **atrebentzia** -esan nion gaztelaniaz-, baina gauza batek erabat harrituta nauka. Bernardo Atxaga

-Barkatu **atrebentzia** , jauna, badakit ez dudala egiaren monopoliorik, baina ezta berorrek ere; hargatik, behin eta berriz esan behar diot legeetan agertzen dena baino mosaiko konplexuagoa dela berori gobernatzen-edo ari den errealitatea. Anjel Lertxundi

-Barkatuko didazu **atrebentzia** baina atea zabalik utzi duzunez, pentsatu dut erosoago hitz egingo genuela etxe barruan. Jasone Osoro

Zu baino dexente gazteagoa naiz, barka **atrebentzia** ...! Txillardegi

-Eta zuri zer gertatu zaizu, **atrebentzia** ez bada? Koro Navarro

-Eta nora, **atrebentzia** ez bada? Aingeru Epaltza

Zer kargu dauka berorren etxean, galdetzea **atrebentzia** ez bada? Antton Olano

-Galdera bat egin nahi nioke, **atrebentzia** ez bada. Joxerra Garzia

Baina Zuzendari txit agurgarri hori, gehiegizko **atrebentzia** ez bada: komunikatzen ikasteko eskatzen dugu liburu hori. Anjel Lertxundi

Aurretik, hala ere, **atrebentzia** ez bada... gurasoen etxetik ere aldegin nahi nikek eta... Xabier Mendiguren Elizegi

Eskari bat egin nahi dizut, **atrebentzia** ez bada. Joan Mari Irigoien

Lagunekin sekreturen bat konpartitu ote zuten ere jakin nahi nukeela gehitu diet gero, eta laurogei urtetan sekretu izan direnak aireratzeko eskatzea **atrebentzia** handiegia ote den. Arantxa Iturbe

Berriro harritu zen lehengusuaren **atrebentziaz** . Joxemari Urteaga

Barka beza irakurleak gehiegizko **atrebentzia** baderitzo, baina guk, mitologia klasikotik abiatuta, istorioaren beste aldaera bat egin dugu. Martin Anso

Atrebentziarekin galdetuta, David -esan zidan Lubisek irribarre arin batekin-, ez zara ba gordeka ibiliko? Bernardo Atxaga

Atrebentziarekin , kapitaina -jantzi gorrizko gorputz ihartua agurtu zuen-. Juan Garzia

Atrebentziarekin , komisario jauna. Felipe Juaristi

2 *atrebentzia ez bada*

-Eta nora, **atrebentzia ez bada** ? Aingeru Epaltza

Atrebentzia ez bada , azalpentxo bat eman nahi nuke, halere, pertsonaiaren motibazioari dagokionez; horretan, kontakizunean ez bezala, egileak - edo egileek - adina eskubide dudalakoan. Joxerra Garzia

Aurretik, hala ere, **atrebentzia ez bada** ... gurasoen etxetik ere aldegin nahi nikek eta... Xabier Mendiguren Elizegi

"Baina Zuzendari txit agurgarri hori, gehiegizko **atrebentzia ez bada** : komunikatzen ikasteko eskatzen dugu liburu hori. Anjel Lertxundi

-Eta zuri zer gertatu zaizu, **atrebentzia ez bada** ? Koro Navarro

Ba, **atrebentzia ez bada** , galdera bat egin nahi nizuke. Bernardo Atxaga

-Galdera bat egin nahi nioke, **atrebentzia ez bada** ... Joxerra Garzia

3 *atrebentzia hartu*

-Lasai zaitez! -esan nion, eta amak ez baitzekien idazten ez irakurtzen, beste gezur penagarri bat esateko **atrebentzia hartu** nuen. Matías Múgica

Eta, bidenabar, **atrebentzia hartuko** dut obserbazio filosofiko bat egiteko. Matías Múgica

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atrebentzia ez bada** (16); **atrebentzia handia** (4); **atrebentzia izan** (4); **barkatu atrebentzia** (6); **barkatuko didazu atrebentzia** (4); **gehiegizko atrebentzia** (3)

---

atrebimendu *iz* ausardia; ausarkeria.

Itxarotea diot, **atrebimenduz** , joera horri antzematen zaizkion traza guztiak aurkitu bainituen nik Troskiren ibileran. Lander Garro

Mutila, ezta?, ausartu zen orduan Donostiakoa aurpegian irribarre zantzu bat marrazten zitzaiola galderaren **atrebimendua** . Joxemari Iturralde

---

atrebitu, atrebi(tu), atrebitzen **1** *batez ere ipar* da *ad* ausartu.

Eta nehork ezin erran zonbat eta zonbat ez diren ondo hetarat **atrebitu** , ikusiz lekuño baten segurtatzea biziki neke izanen zela. Herria

Parise aldeko juje hori **atrebitu** da alabainan Jakes handiaren lekuko gisa deitzerat, diru negozio oker batean xuxen zer gertatua den argitaratu nahiz. Herria

Frangok uste zuten Irakian gerla hasiz geroz beldur bat hedatuko zela, bereziki hiri handi horietan, islamixta gogorrak deitzen dituzten horiek etzirenetz **atrebituko** zerbait lan tzarren han edo hemen egiterat. Herria

Ikusten delarik hiri handietan eta hor gaindi, nun nahi ere azkenean, ainitzek zoin axola guti duten besteen biziaz, zoin aise zernahi lan tzarretarat nola **atrebitzen** diren... Bainan nork egin du holako sarraski edo masakrea? Herria

Nor izan ditake aski zentzu gabea eta aski bihotz gabea holako gauza baten egiterat **atrebitzeko** ? Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Noizean behin xori berezi batzu bazabiltzan gure buruen gainekaldean: kaxko batetik airaturik, tirolinari esker zuten gazte **atrebitu** batzuk lakua airez zeharkatzen, jenden artean pausatu aintzin. Herria

Bainan hara, aski futituak eta aski **atrebituak** izan ditazkeen batzuekin, sekulan ezin erran irriskurik ez dela batere! Herria

Bainan libratuak izan baitira nolazpait eta iduriz segurik arras osagarri onean, berria denentzat atsegingarri ditake, ez ahanztekotan haatik hogoita-zonbait lagun segurik badirela oraino Irakian nunbait bahitzaile **atrebitu** batzuen aztaparretan. Herria

Irujo **atrebitu** eta indartsu, besoairea berez trinketeko moldean eskuinetik ezker segan, azken krakoa bortitz, 12taraino berdintsuan egonik, 17-13ko abantaila hartu ere du Paxkalen huts batzu ere baliatuz. Herria

OHOIN **ATREBITUAK** . Herria

3

Gaiaz bestalde, forman ere gure usaien iraultzera **atrebitu** dira, ikuslearekin harreman zuzenago eta egiatiago baten alde parioa eginez. Herria

---

atresi *(corpusean ez dago; ETCn 72 agerraldi)* **1** *izond* gorputzaren zulo edo hodi baten zulatzea.

Koanen **atresia** bat dela atera du kontatzen diotenagatik. ETC-literatura, saiakera

Etapa horretan, obozito primario deritze, eta obozitoetako askok gero **atresia** (endekatzea) jasango duten arren (jaiotza aurretik eta jaio ondoren), emakume gazte baten obulutegietan 400.000 inguru aurkitu daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sinu koronarioaren **atresia** , %0,1 inguruko intzidentziarekin agertzen den enbrioi-garapeneko anomalia da, sinu koronariotik eskuin aurikulara zainetako drainatzea saihesten duena. ETC-entziklopedia

Atresia pairatzen duen eremutik urrun aurkitzen den bronkioak ordea, garapen normala du; hala ere, hau jariakinez bete eta dilatatu egiten da bronkozele bat eratzen delarik. ETC-entziklopedia

2 *esofago atresi* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Isolaturiko hestegorri **esofago atresia** fistula trakeoesofagiko gabe (%7). ETC-entziklopedia

3 *esofagoko atresi* *(corpusean ez dago; ETCn 8 agerraldi)*

Hestegorria eta zintzur-hestearen bereizketan jazotako akatsek **esofagoko atresien** agerpena eragiten dute fistula trakeoesofagikoekin edo gabe. ETC-entziklopedia

4 ***hestegorriko atresi*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Esofagoaren jarraitasun ezaren sortzetiko malformazioari deritzo **hestegorriko atresia**. ETC-entziklopedia

Hestegorriko atresiaren etiologia ezezaguna den arren teoria anitz proposatu dira. Bai trakea zein hestegorri esofagoa aurreko hestearen eratorriak dira, prozesu hauetan izandako akatsen ondorio direlarik. ETC-entziklopedia

---

atresia *(corpusean ez dago; ETCn **66** agerraldi) iz* gorputzeko hodi edo zulo batean dagoen perforaziorik eza.

Koanen **atresia** bat dela atera du kontatzen diotenagatik. ETC-literatura, saiakera

Etapa horretan, obozito primario deritze, eta obozitoetako askok gero **atresia** (endekatzea) jasango duten arren (jaiotza aurretik eta jaio ondoren), emakume gazte baten obulutegietan 400.000 inguru aurkitu daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mota hau batzuetan beste bihotz akatsekin batera agertzen da; balba akatsak (estenosia eta **atresia**), hodi nagusietako akatsak edo atrio arteko trenkada akatsak. ETC-entziklopedia

Sinu koronarioaren **atresia**, %0,1 inguruko intzidentziarekin agertzen den enbrioi-garapeneko anomalia da, sinu koronariotik eskuin aurikulara zainetako drainatzea saihesten duena. ETC-entziklopedia

Bronkio **atresia**, etiologia ezezaguna duen eta ohikoa ez den sortzetiko gaixotasuna da. ETC-entziklopedia

Esofagoaren **atresia**, malformazio anorrektalak, Hirschsprung gaixotasuna eta zeliakia dira ohikoenak. ETC-entziklopedia

Aipaturiko arazoa buxadura da, giltzurrun garapenaren epe metanefrikoan ematen den ureter proximalaren **atresia** baten ondorio izaten dena normalean. ETC-entziklopedia

Isolaturiko hestegorriko sortzetiko malformazioak hestegorriko **atresia** (zeinetan hestegorriaren bi atalak ez duten inolako komunikaziorik trakea zintzur-hestearekin) H motako fistula trakeoesofagikoak malformazio hauen %4 bakarrik suposatzen duten bitartean. ETC-entziklopedia

---

atrezzo *iz* teatro eszena baterako behar diren altzari, gauzaki eta pusken multzoa.

Bigarren mailakoa, baina eszenategian oso ongi kokatutako **atrezzo**-a izan da. Berria - Harian

Eszenaren lekuak pintatu eta gero -jauregiak, paisaiak, pertsonaien arropak, **atrezzoa**...-, ematen du Giottok haien gainean jarri dituela pertsonaien aurpegiak. Anjel Lertxundi

Schlegelek, gainera, agertokia altzariz betez gero, **atrezzoak** ikusleen arreta desbideratuko lukeela uste du. Berria - Kultura

Nire trajea hire buzoa duk, gauzak izugarri aldatu dituk, errealitatea bera aldakorra duk, lehen ere ez al genian horretaz hitz egin, trajea **atrezzoaren** parte duk. Jon Alonso

Argazkiak, afixak, bideoak, jantziak eta **atrezzorako** gaiak. Berria - Kultura

Eztabaida gehiago izan dute mozorro egokia aukeratzeko: piratak proposatu ditu batek, baina zailegia omen da, begiko partxea kenduta, **atrezzo** txukun bat eskuratzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Dekoraturik gabe, **atrezzo** hutsarekin, Duran eszena zuzendariak funtzionalismo eta minimal ikuspuntu modernoarekin mugitu zituen baldakino mugikor bana hasierako ostatu eta etxeko eszenetarako. Berria - Kultura

Kamerinoetatik, atetik eta baita aretotik ere, Antzezleak, Eszena-zuzendaria, Makinista, Gogorarazlea, **Atrezzo**-zaina agertokira itzuliko dira, eta, haiekin batera, Konpainia-burua Sei Pertsonaiekin batera haren kamerinotik. Josu Zabaleta

Egileak: Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurraga Zuzendaria, eszenografia eta **atrezzo** arduraduna: Agurtzane Intxaurraga. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atrezzo zaina** (6)

---

atributu *iz* zerbaiten edo norbaiten ezaugarria edo nolakotasuna.

---

atribuzio 1 *iz* norbaiti edo zerbaiti zerbait atxikitzea aieru edo usteen bitartez.

Atribuzio hori baino are adierazgarriagoak dira baina, berba hauek: [...]. Xabier Kintana

Lau eskema hauek -**atribuzioa**, artikulazioa, adieraztea eta deribazioa- ez dituzte adierazten gramatikari klasikoek benetan erabiliko dituzten kontzeptuak. Xabier Arregi

Aipaturiko marka bakoitza kategoria bat da, **atribuzioa**, lekua, denbora, egoera, ekintza, pasioa kasuak diren bezalaxe. Askoren artean

Jakizu Jainkoaren (gorets bedi!) egiazko atributuak ezezkoen bidez aitortzen zaizkionak direla, eta horretarako ez dira hitzak era zabalean erabili behar, eta horrek ez du esan nahi Jainkoak inolako akatsik duenik ere; aldiz, baiezko eraz adieraziriko **atribuzioak** barruan elkartze eta akatsaren ideia dauka, jada erakutsia dugunez. Xabier Kintana

Subiranoaren "salbuespen egoera" **atribuzioak** ere gogoratzen dizkigu barkamenak. Joseba Zulaika

Gramatika orokorrak bata bestearekin lotzen du eta ordena horretantxe **atribuzioaren** teoria, artikulazioarena, izendapenarena eta deribazioarena; Historia naturalak eta aberastasunen azterketak lehenengo biak eta azken biak multzokatzen dituzte, baina batak bestearen kontrako ordenan. Xabier Arregi

Gramatika orokorraren esparru arkeologikoak Fabre d'Oliveten ameskeriak biltzen ditu (sekula jaso ez dutenak estatus zientifikoa eta gehiago sartzen direnak pentsaera mistikoaren erregistroan) ez **atribuzio**-proposizioen azterketa baino gutxiago (orduan egia nabaritzat hartzen zena, eta bertan gramatika generatiboak gaur egun aurki dezake prefiguratua bere egia). Xabier Arregi

Esaldi-**atribuzio** eta aditz-kopula teoria zaharra berrartzean, Port-Royaleko gramatikariek enuntziazio-erregulartasun bat ireki dute, arkeologiak bere espezifikotasuna deskribatu behar duelarik. osagarriaren azterketa edo sustraien ikerketak ezingo lirateke agertu (edo berragertu), ez bada behin garatuta **atribuzio** esaldiaren azterketa edo izenari buruzko ikuskera, bera errepresentazioaren zeinu analitikotzat jota. Xabier Arregi

2 ***atribuzio perpaus*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

a) Ezin pentsa daiteke izenik perpausik gabe, eta batik bat **atribuzio-perpausik** gabe. ETC-literatura, saiakera

Bada, horien bitartez **atribuzio-perpausak** asmatu zituztela ondorioztatu behar da. ETC-literatura, saiakera

Atribuzio-aditza dutenak dira **atribuzio-perpausak**. Aditz horiekin batera, predikatu osagarria agertuko da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atribuzioaren teoria** (3)

---

atril *iz* plano makurtu bat duen euskarria, liburu, paper eta kidekoei eusteko erabiltzen dena.

Atrilean, Schumannen Scènes d'enfants saileko partiturak. Anjel Lertxundi

Gaspard de la nuit jarri nuen **atrilean**. Harkaitz Cano

Apezpikuaren koruko liburua **atrilean** zen ene begi bistan. Koldo Izagirre

Bukatu zuen don Tasiok ebanjelioa, aldarearen eskuinera zegoèn **atrilean** irakurrita gero; ekin zion sermoiari, amonak bere hatz erakusleaz erlojuaren orratzak seinalatzen zituen bitartean. Joan Mari Irigoien

Aurrera!, -eta pianoaren estalkia jasorik, **atrilean** zegoen partiturari ekiteko eskatu zidan, gure arazoa nire lanarekiko arreta pixka batek konpon zezakeelakoan edo. Anjel Lertxundi

Parrafo hori aurreneko aldiz irakurri nuenean nahastu egin nintzela iruditu zitzaidan, norbaitek aldatu egin zizkidala **atrilean** neuzkan paperak, zerbait falta zela. Bernardo Atxaga

Mary Ann **atrilera** joan da orduan, eta irakurri beharreko testuak aurkeztu ditu. Bernardo Atxaga

Aita Pipadun izatetik Aita Katxineta izatera pasatzekotan zeuden beste hiru neofitoren ondoan eserarazi ninduen, albo bateko aulki luzean, mahaiburu, oholtza eta **atriletik** hurbil. Jon Alonso

---

atrilista *iz* musikaz mintzatuz, partituran dagoena baino jotzen ez duen musikaria.

Ez zen **atrilistarik** etorri estazioko horma apurtuaren orrialde zuri tarratatua pasatzera. Harkaitz Cano

Gero, bere hatz zuri luzeak - **atrilista** batenak ziren, hura ofizio izan edo ez- igurtzi zituen elkarren kontra, barraskiloek utzitako muki likitsagatik ez balitz kriskitin egingo luketen eran. Harkaitz Cano

---

atrio **1** *iz* elizen eta kidekoen sarreran dagoen esparru edo barrutia.

Beraz, ondarez arrunt dabiltzanek ez dituzte beharrezkoak izango ez sarrera-gela ederrak, ez teilapeak eta ez **atrioak**. Santiago Iruretagoiena

Bere hormatzar eta **atrioa**, kanpaiak, urrezko aldarea, organoa eta tontorraren punta. Hasier Etxeberria

Greziarrekiko zuzeneko genealogia aitortuz beti, ohitura desberdinen bidez justifikatzen ditu, nagusiki, Vitruviok diferentziak: etxe greziarrek ez daukate **atriorik** (VI, 7), Erroman insulae handiak edo altuerako blokeak eraikitzen dira. Santiago Iruretagoiena

Atrioaren altuera, habeen azpiko alderaino, luzeraren hiru laurden izango da. Santiago Iruretagoiena

Atrio gangatuak, berriz, tartea oso handia ez den tokietan egiten dira, eta gaineko solairuan gelak egin behar direnean. Santiago Iruretagoiena

Ezinezkoa da **atrio** txikiek **atrio** handien proportzio-neurri berdinak izatea. Santiago Iruretagoiena

2 *eskuineko atrio* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Eskuineko atrioa animalia ugaztunen (gizakiak barne) bihotzen lau ganberetako bat da. ETC-entziklopedia

Gizakion bihotza lau ganberaz osatuta dago eta atrioak goialdean kokatzen diren bi ganberak dira, **eskuineko atrioa** eta ezkerreko atrioa. ETC-entziklopedia

Odol desoxigenatua hartuko dute bihotzaren periferia guztitik eta odol hori sinu koronarioan bilduko da, odola **eskuineko atrioan** isuriz. ETC-entziklopedia

Beheko bihotz gongoila: **Eskuineko atrioaren** atzealdean kokatzen da. ETC-entziklopedia

3 *ezkerreko atrio* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Ezkerreko atrioa animalia ugaztunen (gizakiak barne) bihotzen lau ganberetako bat da. ETC-entziklopedia

Ezkerreko atrioak biriketatik datorren odol oxigenatua jasotzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

atriobentrikular *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)* **1** *izond* bihotzeko zati bati dagokiona.

Balbula **atriobentrikularretan** geruza honek jarraipena du korda tendinosoetan eta egitura horiek endotelioz estalitako soka-itxurako zuntzak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zelula horiek bihotzaren uzkurketa eragiten dute eta, gainera, korrontea sortzen dute nodulu **atriobentrikularrean** zehar eta bihotzaren garraio-sisteman zehar. ETC-entziklopedia

2 *bala atriobentrikular* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hisen bala, **bala atriobentrikularra** edo faszikulu aurikulobentrikularra bihotzeko aurikulak eta bentrikuluak konektatzen dituen muskulu- eta nerbio-zuntzezko banda da. Estimulua eroateko sistemaren zati hau nodulu aurikulobentrikularraren azpitik kokatua dago. ETC-entziklopedia

---

atrizio *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)* **1** *iz* erlijio katolikoan, beldurrak eragindako damua.

Gogorik ez dagoenean ere, borondatea hartu behar izaten da eta, ipuin teologiko baten arabera, kontrizio edo maite-damurik ez zeukanak **atrizioa** edo beldur-damua behar zuen eduki. ETC-literatura, saiakera

Atrizioa azpimarratuko du Xenpelarrek, hau da, zigorraren beldurrak eraginda zuzendu behar dugu jokabidea, ez hainbeste Jainkoarekiko maitasunari traizio egiteak sortuko liguken minagatik. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 *iz* erabiltzeak edo marruskadurak eragindako higadura.

Horietan, elkorrak edozein tamainatako partikulak dira, eta horrek ezaugarri batzuk ahalbidetzen ditu, hala nola trinkotasun handia, partikulen arteko kontaktua handitzea eta **atrizioa** murriztea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Los Angeleseko saiakuntzak zatiketa erresistenzia neurtzen du eta friabilitate saiakuntzak **atrizio** erresistentzia. ETC-entziklopedia

---

atrofia *iz* gorputzaren zati baten garapen falta.

Ondorio larriak izaten ditu: gorputz-adarren **atrofia** eta perlesia eragiten ditu. Berria - Gaiak

Lacey-k bizkarrezurreko muskuluen **atrofia** dauka. Gotzon Garate

Martxotik aurrera, Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait ospitaletan erretrobirusen kontrako tratamenduak gaixoen aurpegietan eragiten duen **atrofia** sendatzeko ebakuntza egiten hasiko dira. Berria - Euskal Herria

Bestelako larritasun bat zen, sakonago eta funtsezkoagoa: geure-geurea genuen, gure familiek, gure leinuak bere-berezko zuen **atrofia** zahar-zahar batekin loturiko larritasuna, hain zuzen. Juan Garzia

---

atrofiatu **1** *izond* atrofia gertatu.

Gezurra dio hori polita ez dela dioenak, sen estetikoa erabat itxuragabetua eta **atrofiatua** du hori dioenak. Karlos Zabala

A, bai, gauza txikitxo hori; zakil **atrofiatua**; gauza osatugabe hori. Luis Elberdin

Honen adibidea errege hau bera da, hanka kuzkurturik jaio zelarik, edo hanka **atrofiaturik**, orain esaten den bezala, aparteko sendaketa eduki baitzuen, ezein medikuk eskua gainean paratu gabe, eta paratu bazion, ezertarako ez zuen balio izan. Jon Alonso

Efemeropteroak ez dira hegalari oso trebeak eta ahorik, ahoko aparatu murtxikatzailerik, ez dute, **atrofiaturik** dago. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hortik aurrera, **atrofiatzen** hasten dira, eta fintasuna galtzen du dastamenak. Irene Aldasoro

Izan ere, ez bada soinuen bidez bizkortzen, ume horren garun-azala **atrofiatu** egiten da. Berria - Gaiak

Alfiorovak azaldu zuenez, sei hilabete espazioan igaro ostean astronauten "giharrak **atrofiatu**" egiten dira. Berria - Gaiak

2 (era burutua izenondo gisa)

Neuk ikusia, bai jauna, Aitzol abertzale euskotar arraio hura Espainiako falangisten himnoa kantari gure portuko moilan, hegal **atrofiatu** hautsia haren beso luzatua. Koldo Izagirre

Inguru guztian erdarak kutsatutako haurraren hizkera **atrofiatu**, endekatu eta aldrebestua literatura bihurtzen asmatu zuen Koldo Izagirrek Zergatik bai liburuan, amodioa nahiz malaletxea ironiaz biltzen dituen esperimentuan. Xabier Mendiguren Elizegi

---

atrofiatze *iz* atrofia gertatzea.

"Litekeena da **atrofiatze** horrek mina min kroniko bihurtzea", gehitu dute. Berria - Gaiak

---

atrofiko 1 *izond* atrofiari dagokiona.

Badakigu klitoria ez dela zakil osagabea edo **atrofikoa** -zenbat astakeria esan diren!-, baizik eta atal erabat osatua eta fina. Luis Elberdin

Jakina, aspaldian utzi zenituen atzera hamazazpi urteak, eta bestetik jardunbide parakimikozko karrera luzeak hilduratu egin zaitu, **atrofiko**, ezindu, erreaktiboen eta tresneriaren kokapenaz ezjakin huts bihurtu zaitu. Juan Garzia

2 ***errinitis atrofiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Errinitis atrofikoa sudurreko geruza mukosoaren atrofiarekin batera azaltzen den errinitis kronikoa da; eboluzioan, zarakarrak agertzen dira sudurrean kasurik gehienetan. ETC-entziklopedia

---

atropina *iz* zenbait landare solanazeoren sustrai eta hostoetan azaltzen den alkaloide pozoitsua.

Hori aise egiaztatzen da **atropina** emanda (begi-barrena aztertu edo zaintzeko eman ohi da) begi-ninia artifizialki handitzen denean, adibidez: ez da "argiago" ikusten, "lausoago" baizik. Josu Zabaleta

---

atsalaskari *iz ipar* bazkariaren eta afariaren artean artzen den janari arina.

Ortziralean 24a aratsalde apalean, lehenik **atsalaskaria** haurrek izan zuten herriko eskolako geletan, gero abantxu iluna zelarik joan ziren haur guziak Olentzero-ren bidera mendirat buruz. Herria

Astelehenean 11 etan orroitzapenezko meza, aratsaldean hirugarren adinekoen **atsalaskaria** gazteek eskainia. Herria

16 etan jende adinduen **atsalaskaria**. Herria

---

atsalde ik **arr**atsalde.

---

atsaldeoro ik **arratsaldero**.

---

atseden[1] *(ETCn **20.463** agerraldi)* 1 *iz* lanen edo nekeen arteko etenaldia edo arintzea.

Atseden bat Andrési agur esanda gero, **atseden** bat Andrés eta Luisik gabe. Lourdes Oñederra

Atsedenik gabe idazten jarraitzen duen bitartean, Donatien preso zaila da, matxinoa, bere eskubideen eta kartzelako bizi baldintzen alde borroka etengabean diharduena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hantxe kokatu zuen bere **atsedena**. Juan Garzia

Ogirik ere ez zenbaitetan, eta sekula ez **atsedenik**. Imanol Zurutuza

Atsedenerako ordutegia: gaueko 10etatik goizeko 7.30ak arte, igandeetan 10.15ak arte. Josu Zabaleta

Farolik gabeko gauaren xarma, hontza eta zapoa solista dituen sinfonia isilaren **atsedenekoa**, hortxe dago, ordea, debalde. Pello Zabala

21 Espiritu gaiztoa, norbaitengandik irten ondoren, leku ido eta lehorretan barrena ibili ohi da **atseden** bila; baina, aurkitzen ez duelarik, bere buruari esaten dio: Askoren artean

Hura **atsedena**, hura jabaldura! Jose Angel Irigaray

Sofik **atsedenik** gabe jo zuen, bizi eta gogoz. Fernando Rey

Atsedenaldian geundean, eta guk **atsedenik** ez! Joan Mari Irigoien

Debekatu egin zaigu **atsedena**. Karlos Linazasoro

Neska errukarriak ez zuen eliza horretan ere betiko **atsedena** era lasaian igarotzerik lortu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Izkirimiritxoekin hartu duen **atsedenaren** ondoren, biografoak ez du orri horiek idazten hasi arteko onik. Anjel Lertxundi

Sinesgabea izanik ere, katedralaren ilunpeko espazio hotz, isil eta handi hartan bakarrik aurkitzen omen zuen **atseden** aski, bere buruaz beste ez egiteko. Hasier Etxeberria

Atsedenik gabe egin nuen lan, baina alferrekoa izan zen ahalegin hura. Joxan Elosegi

Hogei metro koadrotik gora zituen Mentxuren gelak, eta berton zeukan beharrerako eta **atsedenerako** guztia. Josu Landa

Hiru ordu zaramatzanagu eseri ere egin gabe, eta ondo etorriko zain **atsedena**. Anjel Lertxundi

Atsedenean zeuden liburuak, uraren, gatzaren, arrainen, moluskuen eta algen babesean. Jon Muñoz

Atsedena inoiz baino beharragoa izan eta ezin haren altzoan goza. Aingeru Epaltza

Bi minutuko **atsedena**, harri borobil batean jarririk, hartu dut, mahatsondoei bizkarrez emana banintz bezala. Piarres Aintziart

-Mutiko honek **atsedena** behar du, hogeita hamahiru hezur dauzka hazi beharrean! Iñaki Mendiguren

Baina zintzarri hotsa berria zen bufaloentzat, eta sosegurik eza sortzen zien, gaindika, egun osoan **atsedenik** gabe entzun beharrez. Pako Aristi

Bere jatorriko probintziako gobernadorea, astronomian, astrologian eta arau-liburuen interpretazio **atsedenik** gabean jantzia, xakelaria, poeta eta kaligrafo ospetsua: dena utzi zuen, liburu bat eta labirinto bat taxutzeko. Juan Garzia

Baina, behin hara helduta, lanpetuta eduki gaituzte **atsedenik** gabe. Mirentxu Larrañaga

Maitasuna esnarazten duen Eskua, eta eguzkiaren pean lanean, **atsedenean** eta altxor bila dabilen gizaki bakoitzarentzat arima bikia egin zuena. Xabier Aranburu

Nire zorionagatik eta batez ere nire **atsedenagatik** zaitut otoizten. Jon Muñoz

Gero, kondenatu egin zitean atea, hura lehortu arte; haren gorputzak **atsedenik** aurki ez zezan. Juan Garzia

Nagusiak hirira joateko hartzen hau, baina berehala itzultzen duk eta **atsedenean** pasatzen duk eguna. Patxi Zubizarreta

Lanaldi luzeek ematen zuten, tarteka, **atsedenerako** unea. Xabier Etxabe

Gaur, Frantzia bizirik dago, konstituzioak oraingo **atsedena** bermatu eta bihar-etziko aurrerabideak ziurtatzen baitizkio. Andres Urrutia

Atsedena akabatuta, lerrokatzen hasiak ginen bazkaltzera abiatzeko, baina oraindik ez ziguten emana isil-agindua. Aingeru Epaltza

2 (izenondoekin)

Biek ondotxo zekiten amaiera gertu zegoela, eta **atseden** labur bat hartu zuten. Joanes Urkixo

Arnasa hartzeko **atseden** txiki bat hartu, eta Hirsch andreak bere intziri arin haietako bat egin zuen, eguneroko bizitzaren neke ugariengatik zeuzkan oinaze larriak adieraziz. Anton Garikano

Goragaleak **atseden** laburra eman dit. Monika Etxebarria

Atseden soiltzat dauka nork aisia; halakok, berriz, dibertimendua beste deus bilatzen ez duen orduen gurpiltzat; urliak, denbora-pasa ahalik arinentzat; auzoak, aktibitate sukartsuarekin erretzen den soberakintzat... Anjel Lertxundi

Itsas ertz biluzi, harrobi ilun, antzoki populutsu nahiz trenetan **atseden** handian lerra naiteke. Itxaro Borda

--... noizbait ezagutzaren potentzia garbiaren (bai teoriko eta bai praktiko) batasunean sartu ahal izatea eragiten duen itxaropena eta den-dena printzipio bakar batetik ondorioztatu; giza arrazoimenari beharrezko zaiona, ez baitu **atseden** osorik lortzen bere ezagueren batasun zeharo sistematikoan izan ezik. Jenaro Garate

Bere izaeraren arabera, Semeak, jainkotasunean, hau baizik ez du agertzen: Semea izatea, Jainkoagandik jaio izana, - Izpiritu Santuaren, Jainkoaren maitasunaren, sorburu eta urbegi den Jainkoagandik -, eta batasunaren, zeruko Aitaren, **atseden** bete, egiazko eta osoa. Joan Mari Lekuona

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atseden-orduaren hasiera nabarmentzen duen txirrinak jo du, eta begiradarekin jarraitu dut Arantxaren ibilbidea: lehenengo, bere koadrilakoengana hurbildu eta entzun ez dudan zer edo zer esan die. Iban Zaldua

Lantxo batzuk egin nahi dituzulako, barruko neke minsor hori baretu nahi duzulako, **atseden** puxka bat arimaren barru-barrutik behar duzulako, irratian 13 urte eta erdi, segido-segidoan, jardun eta gero. Pello Zabala

Zaila egongo da aurtengo udan **atseden** apur bat aurkitzea. Hasier Etxeberria

Zeren, berria jaso, osabaren etxera joan eta idazmahaiaren gainean aurkitutako gutuna ireki zuenetik ez baitzuen **atseden** unerik izan zurrunbilo haren erdian. Bego Montorio

Aukeratu zuen diziplina desagertu egiten zen une horietan, eta gorputz zurrundu eta asaldatua lasaitu egiten zitzaion, zeremonia militarretan, soldadu taldeak ikuskapen luze bat jasan ondoren, **atseden**-agindua entzutean bezala. Xabier Olarra

Hala baserri horien ikusmena ere: begientzako **atseden**-leku zirela esan liteke; noiznahi begiratu eta beti hantxe, zerua goian, pinudiak behean, hodeiertzaren soslai antzekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta, hala ere, ume autista askok bezala, kontzentrazio ahalmen eskerga garatu zuen laster, arreta-aukeramen hain sakona, non gauza baitzen bere baitako mundu bat sortzeko, **atseden** - eta ordena-leku bat kaosaren eta zalapartaren erdian. Xabier Olarra

Haren gorputz guztia luzaro itsasten zitzaien **atseden**-oheei. Juan Garzia

Aittittek painelua lau korapilo eginda zuen buruan txapelaren ordez. 'Ederto hazi da mutila! ' Halaxe esan zion aittittek, gurdi gaineko belar metatik jaitsi gabe, heldu berria agurtu eta sangria edateko egin zen **atseden** unean Joseba Sarrionandia

Arratsaldeko argi gorriaren pean, munduko miseria guztietatik haragoko **atseden**-tokia ematen zuen San Salbadorreko komentuak; gezurra zirudien, historiako hainbat gerrate eta pasadizoren gertaleku izatea... Xabier Mendiguren Elizegi

Museoek, zerurantz jasotzen diren eraikuntzek, zubiek, parkeek ikuskizun bikainak eta **atseden** toki apartak eskaintzen dituzte. Gotzon Garate

Eta antzeko esperientziaren bat izango du, edo izan dezake, basoan galduta dabilenak edo goizeko lauretan autopistako **atseden**-esparruan gelditu denak. Bernardo Atxaga

Egoera zein den kontuan harturik, egunean zehar ere izan daitezke **atseden** orduak, zuzendaritzak hala agintzen badu. Josu Zabaleta

Buruaren edozein mugimenduk zirkuluerdi formako kanal baten erreakzioa eragingo du, gutxienez, alde bakoitzean, baina barruko jariakina ez da bere egoera normalera bihurtuko abiadura finko bat (edo **atseden**-egoera) lortu arte. Irene Aldasoro

Opera bukaturik, teatroko **atseden** gelara joan nintzen neure adiskideei ikustaldi bat egitera; han kausitu nuen Émilie adiskide mamia, anitz lagunez inguratua, gizon zein emakume, guztiak oro hark Pøøøn afaltzera gonbidatuak. Jon Muñoz

Futbolean aritzen ginen **atseden** aldietan, indar guziak botatzen nituela, leher egin arte. Piarres Aintziart

Erregeak bakeak egin zituen Bet-Sur hirikoekin eta hauek hiritik irten ahal izan zuten; izan ere, lurrarentzat **atseden**-urtea zenez, ez zuten janaririk hirian babesturik irauteko. Elizen arteko biblia

Hura ez zen berez bainuetxe batean emandako oporraldia, dena luxu eta erlaxazioa, baina niretzat berdina izan zen **atseden**-efektua. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta gauero haurraren lilura-nahiak irabazi egiten dio amaren nekeari, etzanaulkiak ordu horretan bertan igortzen dion **atseden**-eskaintza atzenduz. Pako Aristi

4 *atseden egin*

Gainera, inorekin hasi baino lehen **atseden egin** nahi nuen, lekuaz profitatuz. Edorta Jimenez

Errekadua utzi nionetik hara bere guardi txanda amaitu, **atseden egin** eta beste guardi txanda bat egiteko aski denbora igaro baitzen. Edorta Jimenez

Eta Bucciok gelan barrena egin zuen, eta ohe sagaratu berri hartan sartu eta pausatu zen, **atseden egiteko** asmotan. Joan Mari Irigoien

5 *atseden egun*

Eta, hara non, masturbazioa izan zen Tomek eta biok atera genuen gaietako bat, biharamun arratsaldean bazkaltzen ari ginela (japoniar jatetxe batean ari ginen bazkaltzen, Cosmic Diner-en Marinaren **atseden eguna** zenez gero). Oskar Arana

Asteazkena izaten zen Marinaren **atseden-eguna**. Oskar Arana

-Ez dut presarik - lotsagabeki begiratu zion -, **atseden-eguna** da gaurkoa, eta hurrengoak ere, azken momentuan ezer berezirik sortzen ez bazait bederen. Migel Angel Mintegi

Andoniri ez zaio gustatzen **atseden egunetan** lanari buruz mintzatzea. Migel Angel Mintegi

Sei egunez bilduko duzue; zazpigarren eguna **atseden-eguna** da eta ez da ezer izango. Elizen arteko biblia

Atseden egunari bota beharko diot errua berriro. Berria - Kirola

Besteak beste, hamar egunean 100 orenez lan egin zuen, **atseden egunik** gabe. Berria - Ekonomia

Museoa gaur itxita egongo da, "asteko **atseden eguna**» delako. Berria - Euskal Herria

Eta asteari amaiera emateko igandea (edo domeka, bizkaieraz), **atseden eguna**, agian "igan"ekin, ilargiarekin mugimenduarekin beraz, lotua. Pello Salaburu

Nire **atseden eguna** da bihar. Pablo Sastre

Ez dago hartu beharreko egunen eta **atseden egunen** kontrolik eraman beharrik. Luis Elberdin

Eta gero, bere **atseden egun** luzeetan pentsioan irakurri ohi zituen fisonomia liburuak. Harkaitz Cano

Frau Gerdarentzat ez zegoen jairik ez **atseden egunik**. Anjel Lertxundi

Festa bakar bat ere galdu nahi ezta ikusten ditut nik gazteak, herririk herri, uda osoan, **atseden egunik** hartu ere gabe, eta ez dakit parte onekoa ote den, gero, festa-egarri demaseko hau. Joxerra Garzia

Horrela, hondatutako etxeak lehengoratzeko kanpainak bideratu zituen eta Boa Vista irlara ere joan zen, ondo irabazitako **atseden egun** batzuk hartzeaz gain negoziazioak hasteko Ben'Oliel etxearekin karearen merkataritzarako. Bego Montorio

Bertan hartuko dut **atseden egun** batzuetan. Jon Arretxe

Urte Berri: hiru **atseden-egun**, erriuzkoak eta ezinbestez hartu beharrekoak. Joxan Elosegi

6 *atseden hartu*

Atseden hartzera geratu zen une batez. Koro Navarro

Nire gelara eramango zaitut, **atseden har** dezazun. Koro Navarro

Ordu laurdentsuz lo-ez-lo **atseden hartu** eta gero. Anjel Lertxundi

Iruditu zitzaidan "eseri" esaten zutela [...] **atseden har** nezan eskatuz bezala. Bernardo Atxaga

Ahots kantariak atseden **hartu** zuen, ez amaitua zuelako, baizik eta lehen baino are indar handiagoz segitzeko asmoz. Felipe Juaristi

Eta lekua oso atsegina zen **atseden hartzeko**. Askoren artean

Atseden hartzen ari den koloso baten bakea da. Karlos Zabala

Herriak, bada, atseden **hartu** zuen zazpigarren egunean. Elizen arteko biblia

Atseden hartua nintzen, eta prest nengoen amodio kontu berrietan sartzeko. Koro Navarro

Orain **hartu** atseden, atseden **hartu** behar duzu. Sonia Gonzalez

Bakean **hartuko** dut lo eta **atseden** betiko bizitzan. Askoren artean

· Horrela bakean utziko haute eta atseden apur bat **hartu** ahal izango duk. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

atseden apur (14); **atseden apur bat** (13); **atseden bat** (5); **atseden bila** (10); **atseden egin** (5); **atseden egun** (24); **atseden egun bat** (6); **atseden eguna** (54); **atseden eguna izango** (5); **atseden egunak** (6); **atseden egunean** (5); **atseden eman** (13); **atseden emango** (10); **atseden ematea** (8); **atseden ematea erabaki** (5); **atseden emateko** (11); **atseden eta osasun** (10); **atseden etxeak** (5); **atseden gune** (8); **atseden gunean** (5); **atseden gutxi** (6); **atseden har** (35); **atseden har dezan** (7); **atseden har ezak** (5); **atseden har zezan** (5); **atseden hartu** (163); **atseden hartu ahal** (8); **atseden hartu behar** (10); **atseden hartu beharko** (12); **atseden hartu eta** (18); **atseden hartu nahi** (11); **atseden hartu ondoren** (5); **atseden hartu ostean** (5); **atseden hartua** (5); **atseden hartuko** (29); **atseden hartuta** (6); **atseden hartuz** (12); **atseden hartzea** (31); **atseden hartzea erabaki** (7); **atseden hartzeko** (127); **atseden hartzeko aukera** (10); **atseden hartzeko denborarik** (5); **atseden hartzen** (98); **atseden hartzen ari** (10); **atseden hartzen utzi** (5); **atseden hartzera** (40); **atseden izan** (5); **atseden leku** (11); **atseden pittin bat** (5); **atseden pixka** (26); **atseden pixka bat** (24); **atseden une** (5); **egunean atseden** (9); **egunean atseden hartu** (7); **egunez atseden** (6); **egunez atseden hartu** (5); **gaur atseden** (5); **gero atseden** (5); **har ezazu atseden** (10); **hartu atseden** (14); **hartu zuen atseden** (10); **hartzen dute atseden** (7); **jaunari sagaraturiko atseden** (7); **jokalariei atseden** (6); **lehen atseden** (7); **orain atseden** (7); **sagaraturiko atseden eguna** (6); **zazpigarren egunean atseden** (7)

asteko atsedena (5); **atsedena behar** (29); **tsedena eman** (34); **atsedena emango** (11); **atsedena ematea** (8); **atsedena emateko** (5); **atsedena ematen** (6); **atsedena hartu** (48); **atsedena hartu behar** (7);atsedena hartuko (16); **atsedena hartuta** (5); **atsedena hartzea** (6); **atsedena hartzeko** (11); **atsedena hartzen** (17); **atsedena izan** (15); **atsedena izango** (12); **atsedena primeran** (5); **atsedena ukan** (11); **atsedena ukanen** (10); **betiko atsedena** (13); **eguneko atsedena** (11); **gaur atsedena** (6); **hilabeteko atsedena** (5)

atsedenaren ondoren (7); **atsedenaren ostean** (13)

atsedenera heldu (10); **atsedenera heldu aurretik** (7)

atsedenerako tarterik (5)

atsedenik eman (14); **atsedenik ematen** (9); **atsedenik ez** (23); **atsedenik gabe** (57); **atsedenik gabeko** (10); **atsedenik hartu** (47); **atsedenik hartu gabe** (25); **atsedenik hartuko** (11); **atsedenik hartzen** (22); **atsedenik izan** (10); **atsedenik izango** (11); **ez atsedenik** (8); **ez du atsedenik** (17); **ez dut atsedenik** (6); **ez dute atsedenik** (10); **ez zuen atsedenik** (12); **ez zuten atsedenik** (6); **ia atsedenik** (8)

atsedentxo bat (7)

---

atseden[2], atseden, atsedeten du *ad* atseden hartu, atsedendu.

Emakumeak korridoreetan eta ukuiluetan builaka; beste gizonezko eta mutil batzuk, manifestalditik aldeginak, arkupetan eta teilatu hegalpetan **atsedeten**. Josu Zabaleta

Gauza oro hartzen duen bat-bateko higimen falta dator gero; berekin naramaten haiek (hura bai jarraigo izugarrizkoa!), beren jaitsieran, mugarik ezaren muga gainditu, eta beren egitekoaren unagarriaz **atsedetera** gelditu balira bezala. Koro Navarro

Hark, erregina zutitarazi, eta bere burua haren sorbaldan **atsedeten** du. Juan Garzia

---

atsedenaldi *iz* atseden hartzen den denbora.

Poza eman zion hainbeste ibili eta gero **atsedenaldi** bat egin ahal izateak. Irene Aldasoro

Nekazari, artzain eta mendizale askorekin geratzen gara berriketan, bidean **atsedenaldi** bat eginez. Juan Luis Zabala

Atsedenaldi bat hartu dut, jaun André, hainbat orriren berrirakurtzeko profitatu dudana, eta zer erranen dizut, bada? Joan Mari Irigoien

Aitzineko asteetan eskualde hura zapuztu zuten euri eta elurrek **atsedenaldi** bat hartu zutela zirudien, baina, herriko zaharrenen arabera, aro triste horrek uda mineraino iraun zezakeen. Elena Touyarou

Uste du proba guztiak gainditu dituela, eta ez da konturatzen, bera landugabea eta ezjakina delako, **atsedenaldi** labur bat bakarrik eman zaiola erasoaldi berrirako presta dadin. Joan Mari Lekuona

Atsedenaldi labur bat besterik ez zen izan, arratsaldea ere goiza bezain luze baitzetorkion, noski, erizaindegian zain zeuzkan barneko gaixoak zirela eta. Xabier Olarra

Atsedenaldi laburra egin zuten harana zeharkatu aurretik eta gauarekin batera heldu ziren Santutegira. Agustin Otsoa

Hogei minutuko **atsedenaldi** laburra bederen eskertzekoa zen, saldaren aitzakian. Eneko Bidegain

Arnasari ahal bezala eutsiz, eta **atsedenaldi** laburrak noiztenka baliatuz, jiratu egin nuen soina, eta eskuineko besoa zabaldu. Txillardegi

Eta berriro egin dugu **atsedenaldi** luzea Agri herriko geltokian. Jon Arretxe

Gauzak, ordea, aldatu egin ziren franko **atsedenaldi** luzeak iraun zuen tartean, eta ez, ausaz, gure onerako. Karlos Linazasoro

Gauzak eskatzen hasi zituan: etxalde-jabeeizigorrerako eskubidea kentzeko eskatzen zitean; soldata-igoerak; **atsedenaldi** luzeagoak. Xabier Olarra

Azken egunak nahiko gogorrak izan ditun eta **atsedenaldi** txiki bat hartzea merezi nuela pentsatu dinat. Migel Angel Mintegi

Orduak iragaten ziren eta hobbitak estropezuka zebiltzan, nekaturik, noizean behin **atsedenaldi** txikiak eginez. Agustin Otsoa

Eta ahalegin horren emaitza oroimenean gordetzen zuten, eta gai ziren **atsedenaldi** aspergarriak, neguko iluntze luzeak edota ardoaren inguruko berotasun sutsuak loratuko zituzten bertsoak eta arrazoiak euren kabuz esateko. Pako Aristi

Atsedenaldi aspergarri eta gertakizunik gabeko bat besterik ez zuen desiratzen, indarrak berritzeko aukera bat. Oskar Arana

Zortea izan genuen **atsedenaldi** garaia izana eta baloiek betaurrekoak apur ez ziezazkiguten zuzendariak handik eroana. Koldo Izagirre

Buru-**atsedenaldi** bat behar zuen. Fernando Morillo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atsedenaldi bat (16); **atsedenaldi batean** (3); **atsedenaldi gutxi** (3)

astebeteko atsedenaldia (3); **atsedenaldia baino lehen** (4); **atsedenaldia behar** (3); **atsedenaldia eman** (3); **atsedenaldia hartu** (7); **atsedenaldia izan** (5); **atsedenaldia izango** (3); **atsedenaldia ukan** (3); **bateko atsedenaldia** (3); **eguneko atsedenaldia** (4); **hilabeteko atsedenaldia** (3); **minutuko atsedenaldia** (5); **ordu erdiko atsedenaldia** (3)

arteko atsedenaldian (4); **partidaren atsedenaldian** (3)

atsedenaldiaren atarian (7); **atsedenaldiaren aurretik** (3); **atsedenaldiaren ondoren** (8); **atsedenaldiaren ondotik** (4); **atsedenaldiaren ostean** (20)

atsedenaldira heldu aurretik (5); **atsedenaldira hiru** (3); **atsedenaldira iristear** (3); **atsedenaldira iritsi aurretik** (8); **atsedenaldira joan** (4); **baina atsedenaldira** (3); **heldu ziren atsedenaldira** (5); **iritsi zen atsedenaldira** (3); **zuen atsedenaldira** (3)

atsedenaldirako bost minutu (3); **atsedenaldirako minutu** (4)

---

atsedenarazi, atsedenaraz, atsedenarazten du *ad* atseden hartzera behartu.

Nork ni zugan **atsedenarazi**? Imanol Unzurrunzaga

---

atsedendu, atseden(du), atsedeten du/da *ad* atseden hartu.

Adak burua **atsedendu** zuen nire bularrean, eta laztanka hasi zen, estreinako aldia balitz bezain kementsu, barrez eta urduri. Anjel Lertxundi

Alegia, burua **atsedendu** zure magalean. Juan Garzia

Ukalondoak belaunetan tinkatu, eta burua **atsedendu** zuen eskuetan. Anjel Lertxundi

Eskuak aitzur-kirtenaren gainean **atsedendu** eta, begiak kizkurturik, luzaz egon nintzen urrutira begira, hauts harrotan bilduta zetorrenaren isla osatu nahian. Anjel Lertxundi

Udabidean turistak eta newyorktarrak, lehenak kameraz eta dena-ikusi-argazkitu-behar antsiaz, bigarrenak hiri zalapartatik minutu batzuetan **atsedendu** nahiz, eskailera horietan jartzen dira. Iñaki Zabaleta

Irudimena errebelatzen bazitzaion ere, atzenean lo hartu zuen, eta ondo **atsedendu** zen. Koro Navarro

Hark, erregina zutitarazi, eta bere burua haren sorbaldan **atsedeten** du. Juan Garzia

Besteen behar direnak, besteekin laketzen, denbora betetzen, **atsedeten** direnak eta bakardadeak hormategi ikaragarri batetik igo beharrak edo basamortua igarotzeak bezala unatzen, akitzen, deusezten dituenak. Josu Zabaleta

Eta gizona leihoan bermatzen da ukondoz, izarpean, lotan dauden haurren, etorri behar duen ogiaren, hantxe, hain hauskor eta guri eta iragankor, **atsedeten** ari den emaztearen loaren arduradun. Josu Zabaleta

Hego Afrikako san tribuetako gizonek gaitasun hori baliatzen dute oraindik eguneko ordurik beroenetan ehizan dihardutenean: abantaila dute **atsedeten** dauden animalien aldean. Irene Aldasoro

Lasai dago lotan, gozo **atsedeten**. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **burua atsedendu** (3)

---

atsedengarri 1 *izond* atsedeten duena.

Mendia saihetsetik igaro, eta haran berde, zabal, **atsedengarri** bat topatu nuen. Josu Zabaleta

Atsegingarria zatekeen, atsegingarria eta **atsedengarria**, hilda egotea. Mirentxu Larrañaga

Isiltasuna atsedena da, ez nekearen ondoren eta nekearen ordain sortzen den atsedena, baizik eta nekearen aurretikoa: ezer egin aurretiko gelditasun **atsedengarria**. Felipe Juaristi

Laster, beroa sentitzen hasi nintzen biriketatik gora, baina bero **atsedengarria**. Anjel Lertxundi

Loreak eta irudi erlijiosoak, semearen heriotzaren minak zeharkatu dituen bihotzen lasaigarri, bizitzako nekeen **atsedengarri**. Pako Aristi

Eskuzabal, **atsedengarri**, irribarre zintzo eta era berean pikaroa bere begi urdinetan, begira ari zitzaigun plazan zabalduta zegoen pankartatik, eta lagun egin zigun atsekabean. Rafa Egiguren

2 (izen gisa)

Gizaseme heldu baten etsipena, mundu asko ikusi duenaren nekea suma zitekeen liburu horietan, eta aldi berean, **atsedengarri** gisa, inoiz zapaldu ez zuen lur baten ederra irudikatzeko premia -esan nuen, iruzur hori zergatik abian jarri zuen oraindik erabat konprenitu gabe. Joxean Agirre

Eta gurasoentzat ere **atsedengarri** handia da. Josu Zabaleta

---

atsedengune *iz* atseden hartzeko gunea.

Ithurri Baita etxea, Bordagaineko aldean dena, luzaz **atsedengune** izana haur eta gaztetxoentzat, zerratua da bulta huntan, obra beharretan izanez. Herria

Herriak nahiago du haatik beretzat atxiki eta gisa hartako kontratuak berme **atsedengune** bezala baliatu. Herria

Jaizkibelen gora kalanbreak sentitu ditut, **atsedengunearen** ondoren berriro esfortzua egiten hasita, baina behera bidean hobeto sentitu naiz, eta horregatik jo dut erasoa. Berria - Kirola

Instalaziotzat har genitzake aretoen artean, pasabideetan eta **atsedenguneen** funtzioarekin jarri diren chillout izeneko tarteak. Berria - Kultura

ATSEDENGUNE BERRI BAT. Herria

---

atsedenleku 1 *iz* atseden hartzeko lekua.

Okertu egin naiz, Basse-de-Vieille karrika **atsedenleku** bat besterik ez zen: gauza zain dut Ducoton plazaren bestaldean. Monika Etxebarria

Horrela, txakurrak sarritan, behin lorratz ziurra hartutakoan, piztia menditar baten **atsedenlekua**, hostotzan ezkutatua, usnaz aurkitzen duen bezala, halaxe ahalko duzu, gauza hauetan, bata bestetik zeuk ikusi eta gordeleku ilun guztietan sartu eta handik egia atera. Xabier Amuriza

Dirudunentzako **atsedenlekua** da, diskrezio handikoa egiaztatu ahal izan dudanez. Migel Angel Mintegi

Gorpua zerraldoan sartuta zegoen, Usherrek eta biok eraman genuen bere **atsedenlekura**. Koro Navarro

Aterpea eta **atsedenlekua** eman ziela, haiekin kolaboratu zuela? Jon Alonso

Uda aurrera, gero eta behar handiagoa sentitu nuen zaldi paseoena eta Mandaskako bilkura haiena, zeren ez baitzen mundu honetan, "lainoen azpian", nik amestutako **atsedenlekuarekin** antz handiagorik eduki zezakeen ezer. Bernardo Atxaga

Nekez aurkituko zuen **atsedenleku** hoberik. Jose Morales

Lorategia isil eta bakar baitzegoen, eta, udako azken loreekin, **atsedenleku** goxo bat baitzirudien jantokiko giro betegarriaren ondoren. Bernardo Atxaga

Gogoa ematen ziola Entziklopedia berak hartu eta etxez etxe saltzen hasteko, Benito zenari **atsedenleku** duina eman ahal izateko. Ramon Saizarbitoria

2 (izenondoekin)

gogoa ematen ziola Entziklopedia berak hartu eta etxez etxe saltzen hasteko, Benito zenari **atsedenleku** duina eman ahal izateko; eta zeinen errukigarriak ziren biak, Flora eta bera alegia, patuak ni bezalako alfer bat sartu zielako etxean. Ramon Saizarbitoria

3 irud/hed

Horrela, eszeptizismoa giza arrazoimenarentzako **atsedenlekua** da, non bere ibilaldi dogmatikoei buruz gogoetatu eta aurkitzen den lurraldearen eskema egin dezakeen, honela bere bidea aurrerantzean segurtasun gehiagorekin aukeratu ahal izateko. Ibon Uribarri

Mahai gaina zuen **atsedenleku**, berriz, akatsik gabeko liburu-ilara batek. Mirentxu Larrañaga

Ezin zen eurekin gehiago kontatu pribilegioak gordetzeko, ezta baieztatzeko ere berriro (eta Jainkoak daki beharrezkoa izango ote den gaur egungo larritasunean) historiak, berak bai gutxienez, bizirik eta jarrai dirauela, bera dela auzitan dagoen gaiari dagokionean ziurtasunaren, adiskidetzearen, lo lasaituaren **atsedenlekua**. Xabier Arregi

---

atsedentegi *iz* atsedenlekua, atsedentokia.

Erran du bestalde ikastola berri baten eraikitzeko xedea badutela, egoitza bera **atsedentegi** bezala baliatuko haurrak bakantzetan izaitearekin. Herria

---

atsedentoki *iz* atseden hartzeko tokia.

Atsedentoki bat itsas ondoan. Antton Olano

Argi zegoen nagusia atseden hartzera soilik joaten zela etxera: areago zuen **atsedentoki** ezen ez bizileku. Jose Morales

Eta itsas ondoko **atsedentoki** horretarako lehen-mailako txartela zuen jaun eskuzabal horrek non aurkitu zintuen? Antton Olano

Batzuentzat Sabino Aranaren hobi sakratuaren gordeleku eta niretzat izeko-osaben **atsedentoki**, beste askorentzat euren kuttunena den legez. Edorta Jimenez

Hamarrak baino lehentxeago heldu ziren plastikozko neon-argien hirira, itsasoak harroki ukitzen zuen Atlantic City-ra, non oholezko kaiak eta ibilbideak, pelikuletan hainbat aldiz ikusiak, **atsedentoki** diren jokalari berotuentzat. Iñaki Zabaleta

Hirugarren solairuko **atsedentokian** topatu zuen auzo batek, goizeko zortziak aldera. Josetxo Azkona

---

atsegabe *iz batez ere ipar* atsekabea.

Hor ikusten da zonbat karrekin bere margoen bitartez agertu dituen urtez urte beren arrangura, atsegin, **atsegabe** eta barneko minak. Herria

Ezen gizakia ala da jaiotzaz, **atsegabe** ematen baitio urko lagunari min eragiteak. Harkaitz Cano

Ohartua ahal haiz hi ere mundu honetan nornahirentzat badela atsegin baino **atsegabe** gehiago! Janbattitt Dirassar

Familiaren **atsegabean** parte hartzen dugu. Herria

Gauzen dorpea eztitzen zuen barneko indarrak, mundu honen **atsegabei** zentzu bat emanez. Piarres Aintziart

Adiskide batek erran dit egun batez **atsegabeek** gogortu nautela. Piarres Aintziart

Bizi, lanean ari, deskantsuan, atsegin eta **atsegabeetan**, amodioetan edo samur. Piarres Aintziart

-Seme baten galtzea, hire adinean, badakik, **atsegabe** haundi bat duk, burasoentzat. Michel Oronoz

Atseginean eta **atsegaberako**. Herria

---

atsegabetu, atsegabetzen du *ad ipar* atsekabetu.

Lagun bihurtu eta nola kontatu zenizkion baita zeure gogoeta ezkutukoenak ere: nola izutzen zintuen lehengora itzuli beharrak, nola **atsegabetzen** zintuen Abiadura Handiaren itzalak, nola itotzen zintuen Luperen eskeak eta, aldi berean, nola irensten zintuen Zorionan bizi beharko zenuen bakardadeak. Hasier Etxeberria

Graxiren etxebizitzako leihoak hetsirik zeuden, eta beltzuri bat egin zuen, **atsegabeturik**. Elena Touyarou

---

atsegale *iz* plazeren nahia.

Haien **atsegaleak** sumin handiagoa hartu zuen eta pertsonaz aldatzea desiratu zuen. Juan Garzia

Haien **atsegaleak** sumin handiagoa hartu zuen eta pertsonaz aldatzea desiratu zuen. Juan Garzia

Zimitarra astun batez armaturiko esklabotzar beltzaren gisa, ez zuen aurkitu burutzapen duinagorik bere **atsegalearentzat** besteen heriotza baino. Juan Garzia

Atsegin-egarriz, **atsegalezko** bizimodua zeraman. Jon Muñoz

---

atsegin 1 iz *(ETCn **33.718** agerraldi)* iz gogoko dugunak edo gustatzen zaigunak eragiten digun sentipena; gogo-betetasunezko egoera, eta egoera hori sortzen duen gauza bera.

Itzulpenari dagokionez, oharrez bete zitekeen testu horietako bat da hau, baina ezinbestekoak iruditu zaizkidan batzuk bakarrik jarri ditut, Joycek irakurleari opa zion **atsegina** haren bideak asmatzen ere aurkitzen delako. Irene Aldasoro

Beste zenbaiten arabera, Zeusengandik jaso zuen Tiresiasek igartzeko dohaina; gizakiei zailenetarikoa zaien auzi bat ebazteagatik jaso ere: alegia, ea nor den, gizona ala emakumea, maitasunean **atseginik** handiena hartzen duena. Juan Garzia

Portzierto, ba al dakizue zer erantzun zion abadeak mutikoari? Sar zezala hatz erakuslea belarri zuloan, eta egin zezala hazka, orduan jakingo zuela zeinek hartzen duen jolas horretan **atseginik** handiena. Joxerra Garzia

Baina orduz geroztik, Damaseko pentokan herrokatu eta zaldizko bidaia urrunak goraipatzen zituzten hitzak bazerabilzkion gogoan dantzan: aitorrik gabeko **atsegina**. Itxaro Borda

Marrazkiei begiratzeak nolabaiteko **atsegina** ematen zion. Xabier Olarra

Eta **atseginak**. Menane Oxandabaratz

Hilen dut eta gizon nazkagarri honen odolean ihalozka ariko naiz, **atseginaren** mendekuz eta mendekuaren **atseginaz**. Itxaro Borda

Atsegina, erreusitzearen seinale zen. Itxaro Borda

Ni nintzen gela hartako irakurle bakarra eta halakoetan bakardadeak ematen duen **atsegina** gozatzen ari nintzen. Patxi Ezkiaga

Irrika eskopikoa, ikusi beharra baliarazten duena, ez da, jakina, organo baten **atseginari** darraizkion oinarrizko irrika handi lehen mailako horietakoa, irrika orala, adibidez (abereak duen elikatu beharretik sortua). Josu Zabaleta

On-gaitzak; **atsegina** eta atsekabea. Iñaki Segurola

Delako liburua lehendik ere ezaguna eta irakurria baldin bazenuen, berriz, **atsegina** berritzen dizu, eta zeu ohartu ez zinen hainbat alderdi sujeritzen. Markos Zapiain

Ez al duk uste horrek guztiak **atsegina** ematen diela? Xabier Olarra

Amets egiteak **atsegina** ematen digu, baita ekintza gehiago egiteko indarra ere. Txema Ramirez de la Piscina

Baina bakanak dira halako **atseginak** harenean. Juan Garzia

Utzidazu **atsegina** ematen. Juan Martin Elexpuru

Beharbada mendebaldeko pentsalaririk koherenteena, honetan, Sadeko markesa izango zen, krimenaren **atsegina** justifikatzeko, naturaren suntsigarritasuna aduzitzen zuena. Xabier Amuriza

Eta oroitzen dut ezen berriro egin niola irri orduan, eta **atseginaren** landarea sumatu nuela ezinegonaren lurretan errotzen, errotzen eta hazten, harik eta **atsegina** ezinegonari gailendu zitzaion arte. Joan Mari Irigoien

2 (izenondo edo adizlagun gisa)

Pozten nau Elsa eta ttikien bidaia **atsegina** izan dela jakiteak. Ramon Etxezarreta

Zorri bilaketak kontzentrazio handia eskatzen zuen, **atsegina** zen gero bilaketa eta, batez ere, zorria bi atzazalen artean ipini eta zanpatzea, eta krak soinuak mendekuaren sinbolismoa zuen. Joseba Sarrionandia

Zaunka segitzen zuen zakurrak eta, Joxe barrura zihoala, lepo-kokotsean egin zizkion Mandik esku **atseginak**. Pablo Sastre

Adibidez, denok dakigu azterketen sistema ez zaiela ez **atsegina** ez justua iruditzen... Karlos Linazasoro

Usain **atsegina** niretzat, Putzu kaleko usain beraøø. Txillardegi

Bestalde, ez zen batere **atsegina** lasai bazkaltzeko aukerarik ez izatea, eta goseak egoten nintzen haatik, gose zakar bat jabetzen zen nitaz plazara orduko; aireak, txoriek, zer dakit nik, eragina zuen nigan hirian geratzen zen natura hondarrak. Joxan Elosegi

Nolako fiertasuna hurrengo egunean, begia nora eraman letra haiek jo gabe, nolako hozkirri **atsegina** bazterretan komentatzen zirenak entzuten, mezuaren esanguraz bizkarrak harrotzen, dena jakiten zutenei galdetzen, arrebaren susmoa igartzen, brigadakoak argazkiak egiten ikusten. Koldo Izagirre

Edertasunaren kasuan, Hipias Handian ikus daitekeenez, kontzeptu hori ez zaio zuzenean lotzen **atsegina** eta baliagarria denari. Askoren artean

Beti saiatzen naiz **atsegina** izaten telefonoz, baita alferrik denean ere. Eskarne Mujika

Baina denek barkatzen zieten, gazteak baitziren eta **atseginak**, eta azken batean ez zutelako inoiz ezer desohoragarririk egin. Ander Irizar

Giro alaia eta **atsegina** aurkitu dut, batez ere haurrek jolasean egiten dituzten barre algarengatik. Pako Aristi

Eta hala ere isiltasun **atsegina** da, sama eder hori begi-bistan eta bere adatsa nire aurpegian. Urtzi Urrutikoeetxea

Bat-batean plazerik **atseginenak** gozatzen sentitu zuen Norak bere burua. Anjel Lertxundi

Luis berria da, konpainia berria eta **atsegina**. Lourdes Oñederra

Gizon **atsegina** da zuzendari jauna. Koldo Izagirre

-Lehen esan dezu zure lankidia, Puntu, hain abots **atsegineko** mutil hori, gripiak jota daola, ezta? Jon Arretxe

Aitortu behar dut ikasle zintzo eta **atseginen** itxura hartu dizuedala, eta nire ustez oso ondo konponduko garela eta asko ikasiko dugula." Keinu egin zion Davidi, eta Padam Padam doinuaren notek bete zuten eskola. Bernardo Atxaga

Ez da batere **atsegina** senarraren ondoan esertzea eta eterraren eraginetik esnatzean beste emakume baten izena murduskatzen aditzea, zurea aditu beharrean. Xabier Olarra

Izeba Gloriaren egun on **atseginak** nire gogoeta bihurriak urratu zituen, hain juxtu ere, Anaren logelan bi gau lehenago izan nuen jokamoldeari zergatia aurkitzeko doi-doian nintzenean. Aingeru Epaltza

Gorputzeko parte batzuk ukitu eta horiekin jolasean hasten denean, ohartzen da horrekin oso sentipen **atseginak** dituela. Luis Elberdin

Ez zen gizon **atsegina** notarioa. Ramon Saizarbitoria

Eta **atsegina** zen. Juan Kruz Igerabide

Ez oso lorategi zabala, txikia baizik, hiri barrukoak ohi diren bezala, baina bai **atsegina**, itzaltsua, loretsua, isila, gogoetatsua esango nuke nik, ausartuko banintz. Josu Zabaleta

Atsegina iruditzen zaio Tuteratik lanera etorritako mutila. Paddy Rekalde

3 (izenondoekin)

Azken urte hautan estrenatu da Etxe berri modernoaren barnetan berriz ere **atsegin** bera ukan dute arduradunen itzain eta adixkideek toki alai eta begiko horien miresteko **atsegin** loriatua. Herria

Bazen jende haren ikusteko eta erran dute zenbaitek zer **atsegin** haundirekin ikusten zuten erregina, nahiz errepublikanoak izan. Herria

Eta pelegrinoak oso inpresionatua baitirudi, bukatu egingo dugu zita: "pentsa ahal litekeen baino aurpegi ederragoak, **atsegin** betezko leku batean bazeunde bezala". Koldo Izagirre

- **Atsegin** handiz. Lopez de Arana

Atsegin handiz gonbidatzen dugu berori bihar goizeko 10etan Askatasun Plazan egingo den ekitaldi sozialean esku hartzera. Koldo Biguri

Urteak urteei, zure aitzinetik desfilatzen diren pertsonaiak gero eta aspergarriagoak agitu eta bohème delako hori eramangaitza bilakatu ahalean, eguneroko lana txukun burutzeak ematen duen **atsegin** laburra baizik ez da gelditzen. Aingeru Epaltza

Zurrun nabaritzen nuen neure burua, baina berak gero eta kementsuago egiten zidan; nire titi-muturrean pausatutako ezpainek bentosa bat ziruditen, handik niri **atsegin** esanezin bat ateratzen zidan bentosa leuna. Juan Martin Elexpuru

Halako batean, lehenagoko soinu hura isildu egin zen, erabat, eta oso bestelako musika entzuten hasi ziren marinelak, musika ezti gozoa, musika **atsegin** tristea, marinel tabernetako soinu txikiak sortua bezalakoxea. Felipe Juaristi

Atzamarrak Pietatearen ipurmasailetan iltzaturik, segundo gutxi batzuetako **atsegin** eternala, gerri kolpez lagunduriko isurialdia, esprinterrek helmugako marra gainean jotzen duten giltzurrun kolpea-a-a-a... Unai Iturriaga

Poema zahar anonimo horiek ditu nere gogoak bere guzizko, **atsegin** zahar ilun baten fragmento galduak iduri. Patziku Perurena

Bestela, **atsegin** itzela da hemengo trigueña horiei begiratzea, eta areagokoa horiei liburuak eskatzea eta atzera itzultzera etortzea. Edorta Jimenez

Modulazio kromatikoak, bere tonuen grazia fin eta moduluen ugaritasunagatik, askoz ere **atsegin** gozoagoa ematen du. Santiago Iruretagoiena

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Batzuetan ez dugu jakiten zer dakigun edo buruan zer darabilgun, idatzita ikusten ez dugun arte, eta jakiteko modu hori **atsegin**-iturri bihurtzen zaigu eta baita autoafirmazio era bat ere. Ana Urkiza

Bere oldarraren menera makurtzen dira beti zentzumen guztiak eta hala egin ezean, norberak jakiten du gezurretan eta alferrikako bidean dabilela, ez dagoen lekuetan **atsegin** izpiren baten bila. Hasier Etxeberria

Emaztea hedailo geratu zen, **atsegin** intziri mikorik gabe. Itxaro Borda

Atsegin edo desatsegin-sentipen bat" da afektua. Josu Zabaleta

Nahiz eta edozein gizatalderi nonbaitetik etorri behar zaizkion aurrekariak, pentsatzekoa da Donostiak ere, gizarte orok bezala, izan dituela historian zehar festari, **atsegin**-pasari eta atsedenaldiari eskainitako tarteak. Askoren artean

Azken buruan, hemen aztertu nahi dugun gaia guztion esku - guztion aho - dago, denona baita hizkuntza eta denona **atsegin** gura. Iñaki Arranz

Halarik ere, dakizuen bezala, lehengoan san Isidroren iduria erori zitzaigun buruz beheiti elizan, eta bertze san Isidro bat bai, onartuko nizueke, **atsegin**-sari gisa, hautsi zitzaigunaren orde, zeren, dagoen bezala, aingeruek ere ez baitute ezagutuko... eta nekez etorriko dira haiek, halatan, Urbiainerat, nekazarien lurren laboratzerat. Joan Mari Irigoien

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Batzu asetzen dira diru **atseginez** / Besteak kontsolatzen udan hunat jinez / Nik aldiz hoberikan badut hemen, zinez / Mendi hauk maite ditut amodio minez. Michel Oronoz

Gure irakurle-**atseginak** ere baditu bere erru-zorrak, eta nago ikaskizun ilun bat ez ote genezakeen atera horretatik Juan Garzia

Saint-Ange Anderea: Begien aurrean duzun Venusen makila hau, Eugeni, amodio-**atseginen** eragilerik nagusiena da: zakila esaten zaio; ez dago hau sartuko ez den gorputz-atalik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Halako dotoretasun bat bazuen Fogarty jaunak jasean, esku-**atsegina** zen haurrekiko, eta hitzak ondo ebakiz hitz egiten zuen. Irene Aldasoro

Ez al dakusu nola sarritan elkar-**atseginak** lotzen dituenak kate komunetan oinazetzen diren? Xabier Amuriza

Hain izan zinen samur eta begiko nirekin, gaueko lokal batean topatuarekin, hain dotore eta hain zinez begirunetsu eta hala ere hain grinatsu andra-**atseginetan**; berriro sentitu nuen, zorion zaharrean zabuka, zure izatearen berezko bitasun hori, adimena eta espiritua alde sentsualarekin nahastetik sorturiko grina, neskatila zure gatibu bihurtu zuena. Eduardo Matauko

6 ***atsegin egin***

Honen poemak gaztelaniaz irakurtzeko aukera izan dut eta **atsegin egin** zaizkit, edo atsegin baino zerbait gehiago ere bai. Edorta Jimenez

Kiosko txiki batean posta-txartel banaka batzuk erosi ditu, saltokiko emaztekiari **atsegin egitearren**, nonbait. Javi Cillero

Europar bat **atsegin egin** dakieke eskaintzen dizkien zenbait jakintzari esker; hori gauza ona da hasierarako. Iñaki Iñurrieta

Radhak ahalegin guztiak egin zituen gizonari eta gizonaren etxekoei **atsegin egiteko**. Gotzon Garate

Ez gaitu, noski, janariak Jainkoarentzat **atsegin egiten**: ez dugu ezer galtzen ez jateagatik, ez eta irabazten ere jateagatik. Elizen arteko biblia

Elizkoiak baino ez-elizakoak gehiago eskukatzen ditut, atsegin garbikoak badira, hizkeraz **atsegin dagitenak** alegia eta asmakizunez gogoa ernatzen dutenak, nahiz-eta hauetakorik oso gutxi izan Espainian. Patxi Ezkiaga

Orai, bizi ditela, beti, Jesusi **atsegin eginez**. Herria

Beste aldetik, musikarien artean **atsegin egin** zaigu bi txirulen joaldia Bachen lanean eta etengabeko baxua Haendelenean. Berria - Kultura

Eta itzulera bidean ontzian ibilaldia **atsegin egiten** bazaigu eta erabiltzekoak zirenak gozatzen hasten bagara, ez dugu txangoa azkar amaitzerik nahi izango; eta okerreko erosotasunak zoriontsu egin behar gintuen aberria arbuiatzera eramango gintuzke. Imanol Unzurrunzaga

Aitaren ondoan eman dituen egunetan ere Joxanek beti bezain **atsegin egin** dio berba Bibiri, dena ondo balego bezala, aitaren bihotzak azkena eman behar zuela jakin arren. Paddy Rekalde

Zeren, lehenak, nahi ala ez, ez dakizkien gauzak egiten ditu; bigarrenak, berriz, ez dio nehori, bere buruari baizik **atsegin egiterik**, eta egiten ditu, bakarrik, bizian lehen direla dakizkien, eta, horrenbestez, ororen gainetik desiratzen dituen gauzak. Piarres Xarriton

7 ***atsegin eman***

Jainkoak begira nazala, Printze goihena, nik nornahiri edo ene sorterriko Errege onari berari **atsegin eman** niezaiokeelako uste izatetik, beste norbaiti kalte eginez hortakotz Jesu Kristoren Jainko aginduak hauts banitza! Piarres Xarriton

Ordurako Dabidek sabaiko argia piztua zuen eta niri, bikoteari **atsegin ematearren**, gaumahaietako lanparak ere piztea bururatu zitzaidan. Patxi Zubizarreta

Lur jotzen du bere buruari **atsegin emateko**. Joan Mari Lekuona

Eta, orduz gero, ez zen gehiago Paristarra izan, ezta farfailgina ere; baizik eta Frantziako hirien jiran inguru-minguru ibiltzen diren emakumeon gisako, hilerrietako harrien gainean eseriak, bidaztiei **atsegin emateko**. Juan Garzia

Haiek ez zituzten ongi zabaltzen belarriak eta nik, **atsegin ematearren**, izugarri zabaldu behar nuen nire ahoa. Pello Lizarralde

Bidarten Henriet xokoletakiek eta Baionan Loreztiako eztikiek gostu guzietako jendeari **atsegin emanen** diote. Herria

Ni ere guztiei **atsegin ematen** saiatzen naiz gauza guztietan eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, salbo izan daitezen. Elizen arteko biblia

Zakilmoko txikia ukitzen nion bakoitzean, busti-busti eginda topatzen nuen; horixe gustatzen zitzaidan, **atsegin ematen** niola adierazten baitzuen. Aitor Arana

Gizakien beldur eta minak, beste ezerk ez zion **atsegin ematen**. Joanes Urkixo

Eta ehizakiak, laxaturik, konfiantza guztia harengan ezartzen zuelarik, denbora laburrean baino ez zion **atsegin ematen**. Patxi Zubizarreta

Deitu egin nuen **atsegin emateko**, noizbehinka izaten zituen aldi gozo horietako batean zegoelako, eta horietan ezin niolako deus ukatu; nire esku zegoenik, jakina. Ramon Saizarbitoria

Gainerakoak, premiazkoak ez baizik eta **atsegin emateko** asmoarekin egiten direnak eta beren fintasunagatik askoz ere desiragarriagoak direnak. Santiago Iruretagoiena

Limitearen nozioa agertu izanak **atsegin eman** ziola baizik. Jon Muñoz

8 *atsegin emate*

Biei zinea izugarri gustatzen zaie, eta horregatik erraza izanen zaizu haiei **atsegin ematea**. Fernando Rey

Seguru, bi giza sexuen arteko larru-lanean, larrutako lantegian, bada, emakumeak gozamenari begiratzen omen diola, gozatzeari eta atsegin hartzeari, eta gizonezkoak berriz, gozarazteari, **atsegin emateari** eta emakumea gozatzen ari dela ikusteari. Iñaki Segurola

Beti bezala, historia ezagutaraztea eta **atsegin ematea** du helburu. Berria - Kultura

35. Handia zen haien poza, ez baitzuten ikusten eta ez baitzeukaten ezer hutsalik edo zentzumenei **atsegin ematekorik**. Askoren artean

9 *atsegin hartu*

-Zakila gehienbat **atsegin hartzeko** tentetzen zaik, Onan. Aitor Arana

Baina, jada errana dugun bezala, nehork ez du, bekaiztia ez bada, ene ezintasunaz eta atsekabeaz **atsegin hartzen**. Piarres Xarriton

-Ene aurrean, ni lekuko bakarra nauzula, eta zuk gogokoen duzuen moldean, gizonek bakarka **atsegin hartzen** duzuen moldean aritzea nahi dut. Patxi Zubizarreta

Orduan Minta Doylek, sena bikainekoa bera, bururik gabe esan zuen, baldar, ez zuela sinesten inork **atsegin hartzen** zuenik Shakespeare irakurriz. Anton Garikano

Bere susmoan **atsegin hartuta**, armairura joan eta atea zabaldu zuen. Xabier Montoia

Biek bizkitartean **atsegin hartu** dute europano arduradunek gibelatu dakotelarik beren konduen plomuan ezartzeko epea. Herria

Dena den, lehen helburua jendeak **atsegin hartzea** da zuk gogoko dituzun gauzekin. Berria - Kultura

Haren ondotik joan ziren denak, etxea hustu zen eta burasoek **atsegin hartu** zuten. Michel Oronoz

Sasoi horretan elkar erakarri, elkartu, **atsegin hartu**, ernaldu eta, ondoren, bakoitzak bere bideari jarraitzen dio. Luis Elberdin

Zertan ari naiz hemen, neure burua zigortzen **atsegin harturik**? Anjel Lertxundi

Eta egiazko - ala gezurrezko - bere kontakizun haiekin **atsegin hartuz**-edo, pozoitze lanaren deskripzioa bidali zion, xehe-mehe, etxeko arratoiak akabatzeko ahaleginak balira bezain gordin idatzirik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ikasle adigabea naiz... **Atsegin hartzen** dut eguzki hau gozatuz, ikasmahaiaren, klarionaren, arbelaren haur usain hori dastatuz. Josu Zabaleta

'Atsegin hartzen dut berori hemen ikusteaz! ' esango diozu itsaselefante horri euskaraz, egokia irudituko baitzaizu itsaselefanteari euskaraz egitea. Joseba Sarrionandia

Haren gorputza argia da, soila, eta akatsgabea, bere erara; neska erabat hotz dagoen arren, **atsegin hartu** du gizonak, hainbeste non atseginaren gailurretik oharkabetasun hutsera amiltzen den. Oskar Arana

10 *atsegin izan*[1] du *ad*

Hori da ezkonturte askoren emaitza: besteak **atsegin duena** norberari ere laket gertatzea. Pako Aristi

-Atsegin dut Sandor izena. Eskarne Mujika

Atsegin genuen asteroko deia Oihanek eta biok, baina, bukatutakoan, goibelduta geratzen nintzen. Xabier Montoia

-Horrela izango da! - bota zuen On Camillok, noizean behin zinikoarena egitea **atsegin baitzuen**. Koldo Biguri

Joanes gizon irakurria eta galaia omen zen, emakumeek **atsegin dituztenetarik**. Aingeru Epaltza

Aurrerantzean ere aintzat hartzekoa izatea espero zuen; **atsegin gaituela** iruditu zait. Urtzi Urrutikoetxea

Lotsa gorria emango dizuete, hain maite zenituzten haritz sakratuek, hain **atsegin zenituzten** baratze sakratuek. Elizen arteko biblia

Nire lagunak diren txirrindulariekin mintzatzea **atsegin dut**, batez ere. Berria - Kirola

Atsegin du Joxek bere burua txantxangorriarekin alderatzea. Pablo Sastre

Hori dela eta, hurrengo batean ere ukitze, laztantze eta jolas horietara joko du, **atsegin baititu**, sentipen berriak eta plazerezkoak baitira. Luis Elberdin

Eta esango dizut zergatik **atsegin dudan** horrela ikustea: Ordura arte liburuan agertzen diren gehienek herri kutsua dute, jende apala da, bentetako jende xelebrea, edonon susma daitekeen miseria gorria... Hemen, dukeen jauregian historia lasaitu egiten da. Patxi Ezkiaga

-Biziki **atsegin dinat** gauzak esateko hire modu goxoa. Jon Muñoz

-Atsegin nuke biok egun berean ezkontzea - esan zuen Xams Al-Dinek. Patxi Zubizarreta

11 *atsegin izan*[2] zaio *ad*

Bere ondoan joateko agindu zion dukesak Santxori; oso **atsegin zitzaiola**, haren zentzu-esanak entzutea. Patxi Ezkiaga

-Beraz, Ruche jauna, greziarrei izugarri **atsegin zitzaien** eztabaidatzea! Jon Muñoz

Atsegin zitzaidan kandelen argia; horrela zerbitzariek ezin zuten ikusi nola gorritzen nintzen. Fernando Rey

Koadroa **atsegin zitzaizula** esan zenionean, beste bi lan txikiago ere bazituela erantzun zizun, tartean autoerretratu bat, gazte zenekoa. Hasier Etxeberria

Burduntziei ere **atsegin zaie**, baina ez ditugu horregatik larru beltzezko jantziz eta zartailu-astinduz atseginaren bila dabiltzan xomorrotxo txiki doilortzat zertan hartu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Atsegin izan zitzaizkien aholku haiek Holofernesi eta ofizialei, eta buruzagiek esan bezala egiteko agindu zuen Holofernesek. Elizen arteko biblia

Korsikarrari oso **atsegin zaizkio** lizeoko ikasleak, haien aita balitz bezala zain ditzakeelako. Monika Etxebarria

Atsegin zaie Melanie-Gloria; barretxoak egiten dituzte ateraldi gordinekin, eta barre algaraka hasten dira pertsonaiak iseka eta irainka hasten direnean beren artean. Oskar Arana

Gudari biotz-gogortu aien artean ez baizan **atsegin izango**. Pablo Sastre

Dardarka ari banintzen ere, **atsegin zitzaidan** karrika mortu haietan barrena. Alberto Ladron Arana

Atsegin zaizkit bere begi nabarrak. Iñaki Zabaleta

12 *atsegin-kontentu*

Duda franko ibili ondoren deliberatu naiz hemen berriro ateratzera, nahiz horko zenbait esan-moduk ez nauten orain batere **atsegin-kontentuz** betetzen. Iñaki Segurola

13 *atsegin-poz* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Estandarrak ez du grisa esan nahi, ez da **atsegin-pozik** gabea, eta ez da, batez ere, beti bera eta berdina zeinahi delarik ere darabilgun erregistroa. ETC-prentsa

Alaitasun hark, gaztetasun hark, axolagabetasun hark **atsegin-pozez** gezurtatzen zituzten fraideen sermoi amorratuak. ETC-literatura, saiakera

Kontua da bizikletaren kulpagatik emakumeak beren kasa ibiltzen hasi zirela, etxetik alde egiten zutela eta askatasunaren arriskuaren **atsegin-poz** ttikiaz gozatzen zirela. ETC-literatura, saiakera

14 *atsegin-sari*

Eta bertze san Isidro bat bai, onartuko nizueke, **atsegin-sari** gisa, hautsi zitzaigunaren orde, zeren, dagoen bezala, aingeruek ere ez baitute ezagutuko... Joan Mari Irigoien

Eta zeren nik azal hura eta gorputz hura bainuen bazka eta gozotasun, Fortunaren present eta **atsegin-sari** ! Joan Mari Irigoien

15 *atsegin sexual*

Egungo ohiko zentzu arruntean, giza sexualitatea sexuari dagozkion ezaugarri fisiologiko, psikologiko edo kulturalaren multzoa litzateke; bai eta ezaugarri horiekin lotuta dagoen pertsonarteko jarduera eta jokabidea ere, **atsegin sexuala** lortzera (orgasmoa lortzera batez ere) bideratuta dagoena. Berria - Harian

Saderen bizitza osoari begiratu eta haren azterketa egiten dugunean, haren ibilera libertinoak, haren eskandaluak, haren obra ugaria, haren antzezkizunak..., galde daiteke ea bere helburua, mila bide ezberdin ibiliz, **atsegin sexualak** bilatzea zen, ala maitatua sentitzea baino gura ez zuen haur izuti eta zalantzatsu baten zalapartak ziren haiek guztiak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

16 *poz-atsegin*

Urte probetxugarriak izan ziren, oso arin joan zitzaizkidan baina, haizea bezain arin joan ere, eta ederkien nengoenean, nire zereginetara oso egina, nire hiritarren ona lortua, haien **poz-atseginen**, haien pena-tristuren lekuko zintzo bilakatua, orduantxe iritsi zitzaidan aitaren heriotzaren berria. Felipe Juaristi

Inoiz edo behin elkarrekin ikasten jardunak ginen: serioa zen eta ez zuen bere buruaren gupidarik, jeinutasunik gabe eta **poz-atseginik** gabe ikasten zuen (poza zer zen ez zekiela zirudien), parean jartzen zitzaion testuliburu--atal oro porrokatuz, meatzari batek tunel batean bezala. Juan Garzia

17 *poz-atseginez*

Dahlmann-ek **poz-atseginez** kontu egin zien vinchari, baietazko pontxoari, chiripá luzeari eta moxal-larruzko botei, eta bere artean egin zuen, Iparraldeko eskualdeetako jendearekin edo Entrerríos-tarrekin izandako eztabaida hutsalez oroit, halako gauchorik Hegoaldean baizik ez dela gelditzen. Juan Garzia

Matienak, Fionnen errebelazioagatik **poz atseginez** irribarrezka, itaundu zion. Joanes Urkixo

18 *poz-atseginezko*

Lucius Malfoy jauna Hagriden etxolara sartu zen, bidaiatzeko kapa beltz luze batean bilduta, irribarre hotz eta **poz-atseginezkoa** ezpainetan. Iñaki Mendiguren

19 *sexu-atsegin*

Izan ere, gizonezko haiek erabiltzen zituen **sexu-atsegina** lortzeko, eta indarrak galarazi arte eragiten zien egin beharreko lana. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sabaiari begira zegoen bikotea, **sexu-atseginaren** osteko lasaitasunaz gozatuz. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

asko atsegin (11); **atsegin baitzuen** (10); **atsegin ditu** (14); **atsegin ditut** (11); **atsegin du** (29); **atsegin dudan** (9); **atsegin duela** (13); **atsegin duen** (17); **atsegin duena** (8); **atsegin dugu** (8); **atsegin dut** (72); **atsegin duten** (8); **atsegin duzu** (10); **atsegin egin** (9); **atsegin eman** (26); **atsegin ematearren** (10); **atsegin emateko** (18); **atsegin ematen** (30); **atsegin ez zaiona** (47); **atsegin handia** (62); **atsegin handia ematen** (8); **atsegin handia hartzen** (7); **atsegin handia izan** (7); **atsegin handiagoa** (9); **atsegin handirekin** (11); **atsegin handiz** (120); **atsegin hartu** (21); **atsegin hartuz** (7); **atsegin hartzeko** (8); **atsegin hartzen** (37); **atsegin hau** (9); **atsegin haundirekin** (7); **atsegin hori** (20); **atsegin hura** (8); **atsegin iturri** (9); **atsegin izan** (87); **atsegin izan zitzaion** (8); **atsegin izan zuen** (8); **atsegin izango** (38); **atsegin izatea** (9); **atsegin izateko** (8); **atsegin izaten** (12); **atsegin nuen** (23); **atsegin zaio** (20); **atsegin zaiona** (22); **atsegin zaiona egin** (15); **atsegin zait** (13); **atsegin zaizuna** (8); **atsegin zituen** (12); **atsegin zitzaidan** (8); **atsegin zitzaiola** (7); **atsegin zitzaion** (30); **atsegin zuela** (14); **atsegin zuen** (53); **atsegin zuena** (7); **atsegin zuten** (9); **batere atsegin** (26); **berari atsegin** (10); **beste atsegin** (7); **biziki atsegin** (10); **buruari atsegin** (8); **egitea atsegin** (15); **ez ditut atsegin** (8); **ez du atsegin** (9); **ez dut atsegin** (23); **ez nuen atsegin** (7); **ez zitzaion atsegin** (7); **ez zuen atsegin** (14); **gehien atsegin** (13); **gizakiei atsegin** (8); **gizon atsegin** (7); **guztiz atsegin** (9); **hain atsegin** (18); **hari atsegin** (7); **hori atsegin** (9); **hura atsegin** (10); **ibiltzea atsegin** (8); **izugarri atsegin** (8); **jainkoari atsegin** (19); **jaunak atsegin** (10); **jaunari atsegin** (71); **jaunari atsegin ez** (44); **jaunari atsegin zaiona** (16); **nik atsegin** (12); **niri atsegin** (11); **oso atsegin** (49); **zer atsegin** (7); **zuri atsegin** (8)

atsegina da (87); **atsegina dela** (11); **atsegina den** (9); **atsegina egin** (22); **atsegina egiten** (9); **atsegina eman** (13); **atsegina ematen** (28); **atsegina ez** (21); **atsegina gertatu** (8); **atsegina gertatzen** (10); **atsegina hartzen** (11); **atsegina iruditu** (10); **atsegina iruditzen** (14); **atsegina izan** (98); **atsegina izango** (17); **atsegina izaten** (15); **atsegina zara** (9); **atsegina zen** (78); **atsegina zuen** (8); **aurpegi atsegina** (7); **bai atsegina** (8); **batere atsegina** (37); **batere atsegina ez** (7); **bere atsegina** (9); **bezain atsegina** (8); **ez da atsegina** (9); **ez zen atsegina** (8); **ezusteko atsegina** (9); **gauza atsegina** (21); **gizon atsegina** (21); **guztiz atsegina** (11); **hain atsegina** (20); **irribarre atsegina** (7); **jende atsegina** (7); **leku atsegina** (7); **neska atsegina** (9); **oso atsegina** (96); **oso atsegina izan** (20); **oso atsegina zen** (10); **sentsazio atsegina** (8); **zein atsegina** (8); **zeinen atsegina** (7); **zer atsegina** (19)

baino atseginago (8)

askoz atseginagoa (8); **atseginagoa da** (9); **baino atseginagoa** (15); **ezin atseginagoa** (7)

atseginak dira (9); **atseginak izan** (16); **atseginak ziren** (10); **dama atseginak** (8); **dama guztiz atseginak** (10); **guztiz atseginak** (10); **oso atseginak** (25)

atseginaren atseginez (11)

familia guziaren atseginean (8); **modu atseginean** (16); **oso modu atseginean** (7)

atseginekin ikusi (7); **atseginekin ikusten** (11); **atseginekin jakin** (9)

atseginen bat (8)

atseginez egin (9); **atseginez entzuten** (8); **atseginez hartu** (15); **atseginez onartuko** (24); **atseginez onartzen** (19); **berak atseginez** (9); **bila atseginez** (7); **jaunak atseginez** (30); **jaunak atseginez onartuko** (17); **jaunak atseginez onartzen** (8); **plazer bila atseginez** (7)

atseginik ez (9); **atseginik handiena** (9)

---

atseginaldi *iz* atsegin hartzen den denbora.

Atseginaldi bakoitzagatik 200 bat pezeta eskatzen dute. Gotzon Garate

Pozik nengoen **atseginaldi** bat eman niolako. Joxan Elosegi

Ez nikek nahi, **atseginaldi** batengatik, eskuera ditudan hainbat gauza arriskuan jartzea, Anjel, garai hartakoak ahaztuak ez baditut ere. Migel Angel Mintegi

Berari egokitu zitzaion, bada, esperientzia gabeko emakumeari lehenengo **atseginaldia** ematea. Migel Angel Mintegi

Halako **atseginaldia** emandakoan, ostera mintzatu zitzaion izpildunari:[...]. Jose Morales

Arnasa pixka bat hartzeko **atseginaldiak** izan dira. Xabier Olarra

Gehiegikeria, iz. Moralaren arloan, neurritasunaren legea zigor egokien pean betearazten duen **atseginaldia**. Xabier Olarra

Gainera, "euskara **atseginaldiarekin** eta jolasarekin identifikatzen dituen guneak behar direla" ikusten dute sustatzaileek. Berria - Kultura

Eta aldian behin haien purrustaldiak iristen zaizkigu sarraski jadaneko sumatuari inguruka; eta batbatean Iparraldera aienatzen dira, urruti, eguratsean galduak **atseginaldi** haragikoi batez astinduz aidea hileta soinuan joaki taldean. Patziku Perurena

---

atseginbide *iz* atsegin hartzeko bidea.

Billeteak erabiltzeak sortzen zion **atseginbidearekin** zuritzen zuen bere bakardadea. Patxi Zubizarreta

Estudioan lan egitea zuen **atseginbide** bakarra, beraz, eta egunean hamabost ordu eta are hemezortzi ematen zituen hantxe lanean. Xabier Olarra

Koleraz beterik, ahantzi bide zuen saltoki hartan ezarria zuela bere uste guztia, eta dirua aurreratzea zuela **atseginbide** bakar, ondasunak gozatu gabe baina. Patxi Zubizarreta

Zuhurtziak eta nolabaiteko lotsak galarazten zioan Krisztinari, noski, nire aurrean, musikaren **atseginbideetan** hirekin batera bere burua abandonatzea. Xabier Olarra

Arren degizuet bioi ezen, txiki-txikitatik harekin haziak izaki, eta haren kide-kideko gaztez eta izamoldez, onar dezazuen hemen gure gortean geratzea denbora apur batez; hala, zuen lagunarteak **atseginbideetara** ekarri, eta atzeman dezagun ea, egokierak hartarako modua ematen dizueno, badenentz deus, gure ezkutuan, hala joa duenik, eta, agerira ekarririk, gure esku dagoenik konpontzea. Juan Garzia

Zenbait minututako eroaldia -nolabait esateko, ez baita munduko **atseginbiderik** handiena sobratzen zaion haragi pusketa non jarri asmatu ezinik dabilen ar astuna (txit astuna) jasatea-, hogeita bi hilabete ernari eta bi urte eta erdi umezain. J.M. Olaizola "Txiliku"

atsegindu, atsegin(du), atsegintzen da/du *ad* atsegin hartu.

Horren ondotik, bigarrenarengana jiraturik, gizon ttiki flakoxta bat ikusi zuen, eta **atsegindurik** esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Aldaketa harekin **atsegindurik**, utzi egin zion lehengo mingostasunari. Patxi Zubizarreta

-Nahi nuke, aita... baina, aldi berean, ez nuke, zu **atsegintzeagatik**, Jainkoa atsekabetu nahi. Joan Mari Irigoien

Lilith Espiritu Gaiztoen Erregina oin baten gainean dantzatzen zela esan zuen, eta era guztietako gauzak egiten zituela bera **atsegintzeko**. Koro Navarro

Beraz, gehiago jakiteko eta, maila batera iritsiz, bere buruari lagundu nahi dionari bere espiritua **atsegintzeko**, eman dakioke banako azterketa, eta gero azterketa orokorra. Patxi Altuna

Noiznahi anaia Jiguêren emazteekin **atsegintzen** zen Macunaíma. Pablo Sastre

Auzune horretako zerk **atsegintzen** zaitu? Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atsegindu egin (3)

---

atsegindun *izond* atsegina; zoriontsua.

Lankideen erdian joan zen, bere edertasunaz harropuztua, mihiaren jarioan babestua, **atsegindun** gizonen begirada gehienak batik bat berarengan finkatzen zirelako. Patxi Zubizarreta

---

atseginekin *adlag* gozoro, gogara, gustura.

Baina hartuko dizut **atseginekin** ene girgilen gordetzeko. Itxaro Borda

Dominiquek **atseginekin** behatu zion bere armaren giderrari, eta beste bien ildotik abiatu zen. Elena Touyarou

Atseginekin hartzen du Sophie-k agertzen dion interesa, nahiz ez den harritzen. Eneko Bidegain

Burua handi joan nintzen lanera, irratian entzuten nituela eskualdeko kirol emaitzak eta **atseginekin** jakin nuen gure taldeak irabazi zuela. Daniel Landart

Xaramelak Belokeko abade etxean eskaini dituen kontzertuen kalitatea ere ongi sentitua izan dela **atseginekin** jakin dute biltzarkidek. Herria

Agian, adiskide maitea, **atseginekin** irakurriko dituzu orrialde hauek, bihotzetik zuri eskainiak, oroitzapenak ez diten gal. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azpilkueta izan zen beraz Orreagako kalonje eta, **atseginekin** entzun zuen bere izen hori, baina ez zen luzaz bizi izan mendiarte horretan: doi-doia han egon nobiziaduko urte hartan eta, tarteka, agerraldi bat edo beste egin. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atseginekin entzun (5); **atseginekin ikusi dugu** (3); **atseginekin ikusten ditugu** (4); **atseginekin ikusten dugu** (5); **atseginekin jakin dugu** (7); **kausitze atseginekin jakin** (4); **sortze atseginekin jakin** (3)

---

atseginerako *adlag* atsegin emateko.

Hau ipurdi zoragarria! **Atseginerako** egina zaude. Juan Martin Elexpuru

Erpinean orratz zizelkatu bat zeukan, eta jaiegunetan bandera gorria jartzen zuten hor, gaixoen **atseginerako**. Jose Morales

Hura entzunda, ene anaia txikiak bere ahizpa txikiarekin ezkontzeko prestutasun osoa erakutsi zian eta, bestelako atzerapenik gabe, gure gorputzak batu egin zituan senide txikien eta guztion **atseginerako**. Aitor Arana

Haren iritziz, komisarioak Mari bere **atseginerako** erabili zuen, soilki, herriko beste edozein neskarekin egiten ahal zuen bezala. Elena Touyarou

Irudi artistikoak iradokitzen du irudiaren **atseginerako** guztiz beharrezkoa dela estetika bat, estetika baten hasi-masiak baizik ez badira ere, edo arteari buruzko, haren produkzioari eta helburuari buruzko jakintza bat. Josu Zabaleta

Gero, gure **atseginerako**, nor edo nor ahalegindu den ekintza irudikatzean izaten dugun Poztasuna deitzen dut Gorespena; eta besteen ekintza bat arbuiatzean izaten dugun Tristura, berriz, Gaitzespena. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zure atseginerako (3)

---

atseginetan *adlag* gozoro, gogara, gustura.

Guk **atseginetan** gozatu nahi dugu eta aberats izan, laburra eta tristea baita gure bizitza, eta azkena iristean, ez dago ihesbiderik. Askoren artean

Pobretasuna zerbait bakana da, gizaki orok gutxiesten duena, ez baita **atseginetan** bizi direnen munduan aurkitzen. Askoren artean

Zentzugabeari ez dagokio **atseginetan** bizitzea, are gutxiago menpekoei printzeei agintzea. Elizen arteko biblia

Ez baitu zintzo bete emandako hitza, mahai-zapi gainean ez-jatekoa alegia eta erreginarekin **atseginetan** ez-egotekoa, eta honek bere ondoren dakarren gainerakoa. Patxi Ezkiaga

---

atseginez *adlag* gozoro, gogara, gustura.

Lehen sailekoak maizago eta ugariago bigarrenak baino, baina laneko irakurketa horiek ere **atseginez** egin ohi ditut: gauza ederra da gero gustuko ogibidea izatea. Xabier Mendiguren Elizegi

-Jaits ezazu eskua -esan zuen goxo zerbitzuburuak eta adiadi aztertu zuen geltokiko buruaren lanjantziaren jaka, usokakaz betea, botoi bakarrari begira gelditu zen **atseginez** bezala, geltokiko buruaren inguruan ibili zen bueltanbueltan galtza zerrituei so. Fernando Rey

Laurehun sestertzio jarri dituenak obra egiteko, beste ehun jarri behar baditu ere, **atseginez** jarriko ditu bukatzeko itxaropenik baldin badu. Santiago Iruretagoiena

Pentsatu bezala, **atseginez** erakutsi zidaten bidea terrazan eserita zeuden gizon batzuek, gaztelaniaz egiten bazuten ere. Ramon Saizarbitoria

Akatsik gabea izateak akasgabetasun hori beste onurarik ez din ekarriko, eta beraz hori ez dun harrotasunez eta, are gutxiago, **atseginez** bizitzeko aitzakia izango. Joxan Elosegi

Gizonak **atseginez** hartu zuen ezizenaren kontua, ez hainbeste esanahiarengatik, izen bat edukitzea aurrerapena iruditzen zitzaiolako baizik. Aritz Gorrotxategi

Margaritak eta haren anaiek aldi bat han igarotzeko gaia aipatu zen, eta mutil eta neska zaharrek **atseginez** hartu zuten ideia hura. Josu Zabaleta

Baina aldi guziz **atseginez** aditzen du berriz. Eneko Bidegain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahots atseginez (3); **atseginaren atseginez** (11); **atseginez begiratzen** (4); **atseginez bete** (5); **atseginez betea** (6); **atseginez beteko** (3); **atseginez betetzen** (4); **atseginez edango** (3); **atseginez egin ohi** (3); **atseginez egin zuen** (3); **atseginez egingo** (3); **atseginez entzun** (6); **atseginez entzuten** (8); **atseginez gogoratzen** (4); **atseginez hartu zuten** (3); **atseginez hartuko** (4); **atseginez hartzen** (4); **atseginez hasi** (3); **atseginez ikusi** (5); **atseginez ikusten** (6); **atseginez irribarre** (3); **atseginez jaso** (3); **atseginez lagunduko dizut** (3); **atseginez ohartu** (4); **atseginez onartu zuen** (3); **atseginez onartuko ditu** (7); **atseginez onartuko du** (10); **atseginez onartzen duen** (13); **baina atseginez** (4); **begiak atseginez** (3); **berak atseginez onartzen** (6); **ere atseginez** (11); **guztizko atseginez** (4); **harry atseginez** (3); **jainkoak atseginez** (3);

jaunak atseginez onar (3); **jaunak atseginez onartuko** (17); **jaunak atseginez onartzen** (8); **nik atseginez** (4); **plazer bila atseginez** (7); **poz atseginez** (3); **zuen atseginez** (6)

---

atsegingarri *(ETCn **1.153** agerraldi)* **1** *izond* atsegin ematen duena.

Nik esan ohi nion kristauak epe luzeko hedonistak zirela, epikureo hutsak, munduko plazerrei uko egiten zietenak gero paradisu askoz **atsegingarriagoa** eskuratze aldera. Xabier Mendiguren Elizegi

Hura ere, alta, ez zen memento **atsegingarria**. Eneko Bidegain

Nori zaio **atsegingarri** uztarritik tiraka aritzea eta arrastaka eramatea? Joan Mari Lekuona

Sadek liburu honetan bide alternatibo bat erakusten du, libreagoa, **atsegingarriagoa** eta bakoitzaren gurari eta zaletasunekin begirunetsuagoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Udazkena. Sasoi hau izan zait ene bizian luzaz **atsegingarriena**. Piarres Aintziart

Horren ondotik, Corsa zuriaren kontra zamalkatzen nuenekoa osagarri bat baizik ez zen, nahitaezkoa bai, baina istant batean piztu-iraungi egiten den pindar **atsegingarriaren** mailatik harata egiten ez zuena. Aingeru Epaltza

Eta, Mullerren sistemaren propagandista zen aldetik, **atsegingarria** gertatzen zitzaion ikustea zaindariak harridura nabarmenaz begiratzen ziola; eta, erantzunik jasoko ez zuela jakin arren, behin eta berriro esaten zion begirazuloan ageri zen begiari: Jose Morales

Denak ahanzten zituen, ordea, lo-gelako mirailaren aitzinean zutun plantatzen zenean: bertan eta berehala inguruan zebilzkion gizonei **atsegingarri** agertzeko mila arrazoi finkatzen zituen. Itxaro Borda

Arrazoiren batengatik, katua ikustea **atsegingarri** gertatu zitzaion, nonbait. Iñaki Mendiguren

Ea, mutiko -zaplada bat eman zion bizkarrean-, gonbida itzazu andereño **atsegingarri** hauek. Migel Angel Mintegi

Apainduria handiko lorategi batek eder ditu arrosak, kameliak eta tulipak, baina eder eta **atsegingarri** izan ohi du zuhaitz sendo baten geriza, hala nola haritz, arte edo ezki baten itzal babesgarria udako egun sargorietarako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez dut uste hori harro egoteko moduko gauza denik, baina ziur nago **atsegingarria** izango zela oso. Antton Olano

Hortaz, ez deritzote jauregietan bizi eta zetaz janzteari **atsegingarri**, ez eta bainuez, ukenduez eta lurrinez gozatzeari ere. Xabier Kintana

Egiatan diotsut mundua ez dela guk uste bezain **atsegingarria**. Jon Muñoz

Ontziaren kontuak pergamu berrietara aldatzeari ez nion hain **atsegingarri** iritzi, ostera, baina batez bestekoan pozik nintzen, ontziburuak bere ganbarako mahaian lan egin nezan utziko baitzidan, bertan izkiria nezan. Edorta Jimenez

Tersilla etxean izatea gustatzen zitzaion, **atsegingarri** baitzitzaion harekin egotea. Fernando Rey

Eta Lard kalea ere oso **atsegingarria** gertatzen zen, meharra, jende gutxikoa, Lingerie kale aldera ematen zuen arkuteria zabal harekin. Karlos Zabala

Oso **atsegingarria** da denontzat. Luis Elberdin

Gogoko izan nuen luzaroan, **atsegingarri**, jardun modu hori. Juan Garzia

Denen buru, etxeko itzuli hori alde batetik **atsegingarri** izan bazen ere enetzat, ene gogo-bihotzak gehiago minberatu baizik ez zituen bestetikøø.! Janbattitt Dirassar

Eta, bai, gogoan dut une bat heldu zela non begiak hirurogeita lau laukietatik aldendu eta beste denbora-pasa **atsegingarriagoren** bat bilatzen hasi bainintzen. Alberto Ladron Arana

Zirrara **atsegingarri** bat, halako kidetasun edo haurridetasun kontsolagarri bat-edo, sentiarazten zidan gizakiaren inoizko kemenak utzitako arrasto haiek neure begien aurrean horren antzu eta ahantzi ikusteak, lurperatu gabeko aspaldiko hilotzak balira bezala. Juan Luis Zabala

Eskalatzailearekin hain bilera **atsegingarria** egin eta ordu betera, hitz horiexek neramatzan gogoan trabesturik, abuztuko astearte goiz horretan. ".. øgobernuburuaren galtzontziloen kolorea ereøø.". Aingeru Epaltza

Nolanahi ere, gorputzean nahiz gorputzetik kanpo, Jaunari **atsegingarri** izaten ahalegintzen gara, Elizen arteko biblia

Jarduera **atsegingarria** ekartzen digu gogora, baina aldi berean serioa ez den, ardura handiegiz hartu behar ez den gauza. Iñaki Arranz

-Adizu, zu ere ez zaude gaizki... kontuan hartuta non egon zaren -esan zion Samek **atsegingarri**, irribarrea galdu gabe. Fernando Rey

Diziplina honi erretorika deitu zion eta eginkizun xume baino beharrezkoago hau agindu zion, alegia, herria **atsegingarri** ugariz entretenitzea, bere ongiaren eta probetxuaren bila erakarriz. Imanol Unzurrunzaga

Zergatik gordetzen dugu horren oroitzapen argia, kutuna, gardena Lurrarekin izandako amodio minutu batzuez, sentipen zoragarri arin baten oroitzapena, bidearen bihurgune baten ondoren, ibar baten sarreran, erreka batean, topatutako paisajearen fereka, neska **atsegingarri** bat topatu izan bagenu bezala. Josu Zabaleta

Zer gauza **atsegingarria**! Daniel Landart

Ikasturtearen lehenengo egunak **atsegingarri** gertatu zitzaizkion. Josu Zabaleta

Askatasuna eta zabaltasuna **atsegingarri** zaizkio Bennetti; lurrean bakan ikusi diodan mutiko-begirada ageri du. Xabier Olarra

Iluna nekoso da adimenarentzat, begiarentzat bezalaxe, baina ilunetik argia ateratzeak, horretarako behar den ahalegina bide, **atsegingarri** behar du derrigor. Patziku Perurena

Bai, Txek bazekien nirekin libre ibiliko zela eta mendietan barna elkarrekin ibilaldi **atsegingarriak** egingo genituela. Gotzon Garate

Bere irudiko, alemaniar izen bereziaren eta frantses zehatzailearen arteko loturak halako nahasmendu txundigarri eta arras **atsegingarri** bat eragingo zuen bere bezeroen gogoetan. Oskar Arana

-Hauxe bai **atsegingarria** -esan zuen neskak-. Mirentxu Larrañaga

2 (-ren atzizkiaren eskuinean)

Molde hori baliatuz ohidurazko deiadar ozenak gauaz ez du gehiago joko auzo hurbilen **atsegingarri**. Herria

Joan den larunbat aratsean musika eta kantu ederrik entzun da Izturitzeko elizan, bildua zen jendalde ederraren **atsegingarri**. Herria

urrezko diadema zeraman buru-zapiaren gainean, "Jaunari sagaratua" hitzak zituelarik zizelkatuta: ohore-ikur, goi-mailako lan, begien **atsegingarri**, apaingarri paregabea. Elizen arteko biblia

Modu estetikoa: irudiak ikuslearen **atsegingarri** izateko helburua du, hari sentipen (aisthesis) bereziak sorraraztekoa. Josu Zabaleta

Goizean aparatuak muntatu baino ez zuen egiten, begiaren **atsegingarri** besterik ez bazen, eta gero arratsaldean desmuntatu, arauekiko zintzo; egunean-eguneango berri-emateak fantasia hutsez egiten zituen. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

atsegingarri bat (9); **atsegingarri da** (5); **atsegingarri gerta** (2); **atsegingarri gertatu** (2); **atsegingarri gisa** (3); **atsegingarri iritzi** (2); **atsegingarri izan** (6); **atsegingarri izateko** (2); **atsegingarri izaten** (2); **begien atsegingarri** (2); **denentzat atsegingarri** (2); **jainkoarentzat atsegingarri** (2); **opari atsegingarri** (4); **opari atsegingarri gisa** (2); **oso atsegingarri** (2)

atsegingarria da (4); **atsegingarria dela** (3); **atsegingarria egin** (2); **atsegingarria gertatu** (3); **atsegingarria gertatu zaidan** (2); **atsegingarria gertatuko** (2); **atsegingarria gertatzen** (2); **atsegingarria izango** (3); **bezein atsegingarria gertatuko** (2); **hain atsegingarria** (2); **italiakoa bezein atsegingarria** (2); **ona eta atsegingarria** (2); **oso atsegingarria** (3); **zeinen atsegingarria gertatu** (2)

askoz atsegingarriagoa (2); **baino atsegingarriagoa** (2)

atsegingarriak eskaini (2); **atsegingarriak gertatzen** (2); **opari atsegingarriak** (3)

molde atsegingarrian (2)

---

atseginkeria *iz* atsegin gaitzesgarria.

Eta honekin ez dut obedientzia gaitzesten, handinahia, alferkeria eta **atseginkeriak** baizik. Askoren artean

Horregatik, bere konbertsioaren hasieran, negu min hotzean, espirituz sendo eta kartsu, jelaz edo elurrez betetako zulo batean murgiltzen zen maiz, etxe barruko etsaia bere

agintepera ekartzeko eta garbitasunaren soineko zuria **atseginkeriaren** sutetik gordetzeko. Askoren artean

Gu ere, noizbait, burugabe, errebelde, bide-galdu, edozein grina eta **atseginkeriaren** menpeko izanak gara, gaiztakerian eta bekaizkerian bizi izanak, gorrotagarri eta elkarren gorrotatzaile. Elizen arteko biblia

Babiloniarekin prostituzioan eta **atseginkerian** ibiliak diren munduko erregeek negar eta dolu egingo dute, haren sutearen ke-mordoa ikustean. Elizen arteko biblia

Egun-argitan **atseginkeriatan** ibiltzea dute gogoko; jende nardagarri eta ustel hori lizunkeriatan gozatzen da, zuekin jan-edanean ari diren bitartean. Elizen arteko biblia

Lehen kasuan, ameslariak, edo zaleak, objektu normalean ez hutsal batek erakarri duelarik, harexek sortutako ondorio edo iradokizunen nahasmenean, pixkana, gogotik baztertzen du oharkabean delako objektua, harik eta, sarritan **atseginkeriez** betea den ameskeria hori amaitzen denean, incitamentuma, edo gogoeten lehen kausa, osorik desagertu edo ahaztu zaiola konturatzen den arte. Koro Navarro

---

atseginki *adlag* modu atseginean.

Beregondi, burua **atseginki** sostengatzen zein albo sendoak ferekatzen utzi zion gustura. Agustin Otsoa

---

atseginkiro *adlag* atseginki.

Mutil jatorra naizela adieraziko nioke, lagun gutxi ditudala; poliki eta **atseginkiro** mintzatuko nintzaioke nire bizitzaz; oso zaila da New Yorken lagunak egitea; eta nahi balu beste aldi batez elkar ikusteko gera gintezke... Iñaki Zabaleta

---

atseginkoi *izond* atseginen zalea.

Ezer baino maiteago nuen banana esku batez zuritu bitartean, beste eskuaz ene barrabil **atseginkoiak** laztantzea. Aitor Arana

Nik bi isurpen haiek beren jabeek bezain **atseginkoi** gozatu ez banituen ere -ulertzekoa denez-, ezin uka atsegin izan nituela. Aitor Arana

---

atseginkoitasun *iz* atseginen zaletasuna.

Luxua eta **atseginkoitasuna**. Oskar Arana

---

atsegintasun *iz* atsegina.

Bai, zinetan, oro diot irakatsi, baita **atsegintasunak** ere! Jon Muñoz

Hari buruz erran didatena sinetsiz gero, nire iloba, aitor dizudanez, agian ahulkeriaz ere maite dudana, eta bere baitan alabaina anitz dohain laudagarri eta anitz **atsegintasun** biltzen dituena, ez da arriskurik gabea emakumeentzat, ezta hutsegiterik gabea ere haien aldera, eta berdin lehiatzen da emakumeak seduzitzera eta galtzera. Jon Muñoz

Oinazezko eta larridurazko egoera horren ondoren, lasaitasuna eta **atsegintasunak** etorri dira. Jon Muñoz

Egungo eguneko Danceny emakoi, menturazale eta, ohi denez, doi bat gaiztatuak nahiago ote du neska gazte arrunt ahalketi bat, zeinak bere fabore ez baitu edertasuna, inozentzia eta amodioa baizik, emakume guztiz ohitu eta trebatu baten **atsegintasunak** baino? Jon Muñoz

---

atsegintegi *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1) iz* atsegin hartzen den tokia. ik **atsegintoki**.

Gerratik erauzi nahi nuen ene lehengusu Christopher, eta haren emazteak eta biok begi aurrean genuen **atsegintegi** berde hartan gorde. ETC-literatura, saiakera

---

atsegintoki *(corpusean ez dago; ETCn 7 agerraldi) iz* atsegin hartzen den tokia. ik **atsegintegi**.

Eta zeinen gozo eta ezti sentitzen zen halakoetan, lur batek -bereak, fabrikako giro lakarrak maiz lakartuak- beste lur abegikor hura balu bezala **atsegintoki**, lurrak lurra ihesbide...! ETC-literatura, saiakera

Baina, gainerako urtaroetan, kapija **atsegintoki** hutsa da handientzat zein txikientzat. ETC-literatura, saiakera

Horra hor gonbita gure artera zatozen horrentzat: goza ezazu gurean, baditugu-eta **atsegintoki** politak, baina ikasi zerbait gure herriaren bizimoduaz ere, bizi nahi eta ezinean dabilen, bere nortasunari eutsi nahi eta nola lortu ez dakien herri txikia gara eta. ETC-prentsa

Bururatu zitzaidan hirugarren kontua da susa daudenen **atsegintoki** behar duela izan halako isla batek, alberdanian dabiltzanen paradisu, elkar erakartzen duten gorputz biluzien hondartza leun, erein osteko ondorenen beldurrik gabeko eremu libre. ETC-prentsa

Zure soineko ertzak eta mertzak ibilkatzea amestu nuen, zure geografian kristal esnezko ibaiak aurkitzea, baita ezti gozoko osinak ere, zure zurdaren oihanean galtzea eta Basajaunekin mendi malkarretan gora igotzea, ondoren zure leize zulo hezean etsitzeko, Mariren lurpeko **atsegintoki** eta Sugoiren orro-leku den horretan. ETC-prentsa

---

atsegintsu *izond/adlag* atseginez betea; atseginez.

Behartsuek, berriz (zentzuzkoa edo ezinbestekoa zen bekaizgoz), zir-zart dudarik gabe **atsegintsu** horretatik bazterturik ikusten zuten beren burua. Juan Garzia

Denda eroso zihoan, **atsegintsu**, neke handiegirik gabe, Lisak nahi bezala. Karlos Zabala

Denok **atsegintsu** kateatu ginenean, elkarri popatik emateko mugimendu erritmikoaren bila hasi ginen. Aitor Arana

---

atseginzale *izond* atseginen zalea dena.

Arte **atseginzaleekin** batera jostatze-praktikak ipintzen ditut; zeren eta zentzumenak engainatzea baita zentzumenen atseginetako bat. Iñaki Mendiguren

Emazteki lizunak, izan ezazue eredu Saint-Ange andere **atseginzalea**; haren etsenpluari jarraituz, mespreza ezazue bizitza osoan kateatu zuen plazeraren lege zerutarrari aurka egiten dion oro. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Entzun, bada, orain, emakume **atseginzale**, tronuan lasai zauden horrek; zeurekiko zenion: "Neu, eta beste inor ez! Ez naiz alargunduko, ez haurrik gabe geldituko". Elizen arteko biblia

Antonin Artaudek esaten zuen izurriteak eguneroko bizitza aldatzen zuela, irauli egiten zituela baloreak -zuhurra eskuzabal bihurtzen da, puritanoa **atseginzale**- eta ohizko ordena. Bernardo Atxaga

---

atseginzaletasun *iz* atseginzale denaren nolakotasuna.

Andere mahats gorria, andere mahats beltza, hurrak barrez ari ziren begitarte lotsagabez; eta, mahatsez beteriko saskietan, mordo handiak, mozkorkeriaz mukuru, zumearen ertzean zorabiatu eta beren aleak, eguzkiaren **atseginzaletasun** beroegiak gorriturik, erortzen uzten zituzten. Karlos Zabala

atsekabe *(ETCn **1.153** agerraldi)* **1** *iz* gogoko ez denak edo ezbeharrak sortzen duen sentipen mingarria. ik**nahigabe**; **sufrimendu**.

Errusiatik erretiratzeak eragin zion **atsekabea** gainditu eta beste eraso bat prestatu behar izana? Harkaitz Cano

Bada esperantzarik guretzat, gure **atsekabearen** aurka. Juan Garzia

Atsekabeak erakartzen omen ditut, kanpandorreko orratzak tximistak erakartzen dituen bezala. Anjel Lertxundi

Atsekabearen arrastorik ere ez, ez zegoen mindua nirekin bere aita bezala, eta lasai esan zidan: deitu niri telefonoz! Fernando Rey

Horixe izan da Teresari ere esan diodana, ea amari nola eman diezaiokedan orain halako **atsekabea**. Patxi Zubizarreta

Migeli bihotza jauzika lotu zitzaion, bozkariotik ezustera eta ezustetik **atsekabera**. Aingeru Epaltza

Eta ez du inork filme batean aterako zure oinazea, zure **atsekabea**. Lourdes Oñederra

Horrelako zoritxar batek berez dakarren **atsekabeaz** gain, erantzukizun berrien zama datorkio Paxkali bizkar gainera: bere geroa, etxaldearen segida, emakumeekiko segurtasun eza... Daniel Landart

Honek hurbiltasuna, elkar maitasuna, anai ardura baino ere gehiago ama-ardura nabari du; Frantziskok anai Leoni agertzen dion etxekotasunak ederki erakusten du nola lagundu behar zaion **atsekabean** nahiz ilunpean dagoenari. Askoren artean

Hau da, nahiz eta **atsekabeak** izan eta bekatuak egin. Jenaro Garate

Urrutian, mendiez haratago, sute berriak pizten ziren etengabe, zerumuga gorritua zegoen eta mendietarantz goratzen zen, **atsekaberen** baten muinerantz. Fernando Rey

Orduan ere ez nuen inolako **atsekaberik** sentitu; ez behintzat zizare bat zanpatuta sentituko nukeena baino handiagoa. Alberto Ladron Arana

-Hau **atsekabea**. Eskarne Mujika

Haren aurpegian ez zen lotsaren edo **atsekabearen** zantzu izpirik ageri. Ander Irizar

Harry autoaren atzealdean sartu zen, eta berehala haren ondoren Hermione, Ron eta, Ronen **atsekaberako**, Percy. Iñaki Mendiguren

Ez, ordea, malkoei: **atsekabeari** eutsi ezinik, amets garaian neurera erakarritako maindireaz eta mantaz estali dut gaixoa. Anjel Lertxundi

Kontuz ibili, bazterrean utzi gaur abentura oro, zeren, onartzen badituzu, **atsekaberik** handienean murgilduko zara. Julen Gabiria

Bere izateko arrazoia adeitasun erakuspenaren edertasunaz justifikatzen duen **atsekabearen** duintasun hori gabe. Josu Zabaleta

Pentsatu zuen, halako egoera batean, **atsekabeak** jotakoari zegokion itxura zabarra ager zezan igurikiko zuela Whittaker andreak; hark ere ageri beharko zukeen bezalatsu, nahiz eta neurrian. Mirentxu Larrañaga

Norberaren sufrikarioak eta **atsekabeak** bestek aintzat hartu eta eskerturik ikustea bizkorgarria delako. Txillardegi

Aldika, begiratu, eta hasperen egiten nuen, harridurak edota **atsekabeak** arnasa hartzea eragotziko balit bezala. Pedro Alberdi

Tristezia, **atsekabea**, malenkonia, nostalgia, nahigabea, dolua, samina, pentsatzen du, eta ez dio inbidiarik hiztegigileari. Imanol Zurutuza

Pertsonak, ohiturak, jendearen pozak eta **atsekabeak** eta gizarteko gorabeherak ezagutzeko, aldiz, gero eta gogo biziagoa sumatzen dut. Gotzon Garate

Irakasleak, **atsekabeak** jota, tiraderatik atera berria zuen liburua zabaldu eta, haien aurrean estreinako aldiz agertu izan balitz bezala, urduri eta totelka eman zien eskola. Josetxo Azkona

Beti jakin ei du mutil bizkorra naizela, sentimendu sakonak dauzkana eta arduratsua, eta horrek apur bat kontsolatzen omen du hainbeste **atsekaberen** artean. Urtzi Urrutikoetxea

Han egon ohi da orein-begiak dituen neska zoragarri hori, baina ez dit beti jaramon egiten, eta halakoetan inoiz baino gehiago edaten dut, nire **atsekabeak** itoarazteko. Mirentxu Larrañaga

Baina hirugarren asmoa, arrakastari zegokiona, alegia, ez zen gauzatu eta gure lagunak bigarren **atsekabea** hartu zuen. Jon Arretxe

Haren **atsekabea** bihotzeraino sartu zitzaidan. Migel Angel Mintegi

-Ez dut zure kontuetan sartzeko asmorik, Ralph -esan zuen ahots lasaiaz-, zuk **atsekaberik** ez izatea besterik ez dut bilatzen. Fernando Rey

Egingo nuke Ada konturatu egin zela nire **atsekabeaz**, buruaz ondoko gela seinalatu, eta hitz beste egin baitzuen tupustean: Anjel Lertxundi

2 (izenondoekin)

Beste metodorik ez zen, emakumeak **atsekabe** handiak jasan ditu hori dela-eta garai guztietan, bere askatasuna errotik mozten zion horrek. Karlos Zabala

Agurearen aurpegi zapalak eta begi ilunek ez zuten ezer adierazi, baina ahotsean **atsekabe** iluna sumatu zitzaion. Agustin Otsoa

Emakumeak, ordea, uste du ezen, seme edo alaba bat galtzen duenak **atsekabe** infinitua sentitu behar duela, Job santuarenaren parekoa. Imanol Zurutuza

Jakina, amak **atsekabe** txiki bat izan zuen, baina Lockharten liburuak irakurrarazi nionetik, uste dut hasi dela ulertzen zein praktikoa den ongi prestaturiko azti bat familian izatea... Iñaki Mendiguren

-Atsekabe gaitza emango diok amari -ni neure buruarekin mintzo - baina oraintxe joan behar duk. Txillardegi

Hala ere, nahiago izan nuen nire bidaia hura Joxanen aurrean isilik gorde, berak halako interes pertsonal bat baitzeukan nirekin, nik harekin ez bezala, eta ez baineukan batere gogorik gure zuzendariari **atsekabe** sentimental bat emateko, are gutxiago haren tratu eta mesedeak galzorian jartzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

1902an hil zen, bere eskukoengan eta gustu oneko pertsonengan **atsekabe** hunkituak eraginez. Monika Etxebarria

Bakean zegoela sentitu beharra nuen, egiazko beharra, bizitzako ardura xumeetara guztiz emana zegoela, nire arimaren **atsekabe** nahasietatik kanpo eta urruti zegoelako zorionean. Josu Zabaleta

Han **atsekabe** izugarriak jasan omen zituen. Gotzon Garate

Atsekabe larriaz betetzen zaizkit bihotza eta gogoa -dio Homerok Iliadan- gizabanako bat bere boterearen gehiegikeriaz baliaturik bere berdinari iruzur egiten eta etekinak lapurtzen saiatzen den bakoitzean. Txema Ramirez de la Piscina

Probintzietan, berriz, **atsekabe** izugarria zabaldu zen juduen artean, erregearen dekretua jakitera eman zenean. Jose Antonio Mujika

Consuelo gure arreba txikiena orduan jaio zen eta padrek **atsekabe** galanta hartu zuen ez zelako mutila izan. Jon Maia

Atsekabe samur batek biltzen du betikoz joan denaren irudia. Joxan Elosegi

Beldur aitortu gabea sentitzen zuen egiatan, **atsekabe** luzeek argalduriko mutil hura aurrez aurre zuela. Karlos Zabala

Ahuspez etzanda zegoen eta zaratarik gabe ari zen zotinka, ezin jasanezko **atsekabe** larriz, jendeak bizitza baten galeragatik, behin betiko galdutako bizitza handi batengatik soilik negar egin dezakeen eran. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Estetika eta etika aldetik **atsekabe** bidea... J.M. Olaizola "Txiliku"

Apur batez buruaz baietz eginez erantzun du, **atsekabe** aurpegiz. Urtzi Urrutikoetxea

Argazkiaren oin-oharra irakurri nuenean ez nintzen larritu; **atsekabe**-ziztada bat sentitu nuen nire baitan, asko jota. Iban Zaldua

Diruaren zama nonbait - zehaztu zuen, **atsekabe** itxuraz. Migel Angel Mintegi

Gero, gorantz begiratu zuen eta, bere aurpegiaren azal nekatuan **atsekabe**-imintzio bat erakutsiz, keinu bat egin zion zerbitzariari. Lopez de Arana

Gogora zaitez zure zorion egunetan eta zure **atsekabe** egunetan ama zurekin duzula, inork ez du hori hiltzeko ahalmenik. Felipe Juaristi

-Patu gaiztoa -esan zuen ironiaz, **atsekabe**-keinu batez. Ander Irizar

Parrokiaren barruan zein kanpoan, **atsekabe** aurpegiak eta isiltasuna izan ziren nagusi hileta elizkizunak iraun zuen bitartean. Berria - Kirola

4 ***atsekabe eman***

Areago, Jaunak bere errukian dohain hau eman dit: atsegin edo **atsekabe ematen** diodan gauza guztiez otoitzean ezaupide argia izatea. Askoren artean

Epe laburrean Gamesak bi **atsekabe eman** dizkie inbertsoreei. Berria - Ekonomia

Bada **atsekabe ematen** didan beste gauza bat, au da enzutea euskaldunak gaizki esaten ta auzitan bezela batzuek besteakin. Koldo Zuazo

Ez du gogo onez umilarazten gizakia, ez dio gogo onez **atsekabe ematen**. Elizen arteko biblia

5 *atsekabe hartu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

-Barkaidazu -esan zion medikuari-; mutil horrek galdetu du ea noiz izango den gauza berriz ibiltzeko, eta **atsekabe hartuko** nuke gezurra esanda. ETC-literatura, saiakera

Gezurra zirudien hura bezalako gizon batek, bizitzan hainbeste **atsekabe hartutakoak** eta harlauza haren aurrean eserita hainbeste denbora igarotakoak, horrela ibiltzen jarraitzeko gogoa izatea oraindik. ETC-literatura, saiakera

6 *atsekabea eman*

Kanpoko gauzak galtzeak **atsekabea ematen** badit, gauza ziurra da kanpoko gauzak ditudala maite nik, eta beraz, atsekabea eta nahigabea ditudala maite errealitatean. Joan Mari Lekuona

Behin batean, deabrua, anai Juniperori izen ona kendu eta **atsekabea eman** nahian, tirano txit gogor batengana joan zen. Askoren artean

Atsekabea ematen badu ere, errukitu egiten da bere neurrigabeko onginahiz. Elizen arteko biblia

7 *atsekabea hartu*

Baina hirugarren asmoa, arrakastari zegokiona, alegia, ez zen gauzatu eta gure lagunak bigarren **atsekabea hartu** zuen. Jon Arretxe

Pronostikorik ere ez du eman azken boladan, askotan gertatu baitzaio data jakin batean jokatzeko prest egongo dela esan ondoren, **atsekabea hartu** behar izatea. Berria - Kirola

Hogeita hamar zentimoko gauza bat hogei zentimotan erosi zuela iruditzen bazitzaion, sekulako **atsekabea hartzen** zuen. Josu Zabaleta

Atsekabea hartuko dute askok, baina zulo beltzak ezin dira erabili beste unibertsoetara bidaiatzeko». Berria - Gaiak

Zertxobait lasaitu egin zela zirudien, baina ez zuen etsi ni erabat ikaratu arte: lagundu egin beharko niola polizia-etxera, nire gurasoei deitu beharko ziela, a zer **atsekabea hartuko** zutena nire ibileren berri jakindakoan. Pako Aristi

8 *atsekabean lagundu*

-Atsekabean laguntzen dinat, Nekane. Joan Mari Irigoien

Damu dut zure aitarena, baina ez naiz **atsekabean laguntzera** etorri. Javi Cillero

Joben hiru lagunek -Temango Elifazek, Xuaheko Bildadek eta Naamako Tzofarrek-, Joben zoritxarraren berri izan zutelarik, bisita egitea erabaki zuten **atsekabean lagundu** eta kontsolatzeko. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adio atsekabe (7); **atsekabe asko** (6); **atsekabe ematen** (6); **atsekabe eta tentaldi** (4); **atsekabe gehiago** (4); **atsekabe guztiak** (3); **atsekabe guztien** (3); **atsekabe guztietan** (5); **atsekabe handia** (23); **atsekabe handia ematen** (4); **atsekabe handiagoa** (3); **atsekabe handiak** (3); **atsekabe handiz** (13); **atsekabe hori** (6); **atsekabe horiek** (5); **atsekabe hura** (5); **atsekabe infinitua** (3); **atsekabe orotatik** (3); **atsekabe ugari** (7); **bere atsekabe** (4); **galtzen duenak atsekabe** (3); **horrek atsekabe** (6); **neure atsekabe** (6); **zein atsekabe** (4); **zoritxar eta atsekabe** (4)

atsekabea adierazten (3); **atsekabea agertu zuen** (3); **atsekabea arinduko** (3); **atsekabea atsegin** (3); **atsekabea azaldu** (3); **atsekabea baino** (3); **atsekabea besterik** (3); **atsekabea egipton** (3); **atsekabea eragin** (4); **atsekabea eta nahigabea** (3); **atsekabea gainditu** (3); **atsekabea hartuko** (3); **atsekabea ikusi** (3); **atsekabea izan** (4); **bere atsekabea** (6); **hau atsekabea** (3); **herriaren atsekabea** (3); **jaunak nire atsekabea** (4); **nire atsekabea** (21); **oinazea eta atsekabea** (3); **zeure atsekabea** (3)

atsekabeak jota (4); **nire atsekabeak** (4); **pozak eta atsekabeak** (4)

atsekabean lagun (3)

atsekabearen atsekabez (6); **nire atsekabearen** (3)

neure atsekabeen (3)

atsekabeetan poztu (4)

atsekaberen bat (3)

atsekaberik ez (5); **atsekaberik gabe** (4); **eta atsekaberik** (4)

---

atsekabealdi *iz* atsekabezko aldia.

Atsekabealdi gogorra jasan behar izan duten arren, haien poza neurrigabekoa izan da eta, gabezia gorrian izan arren, oso eskuzabal agertu dira. Elizen arteko biblia

Josek bere **atsekabealdian** ere bete zuen agindua, eta Egiptoko jaun egin zuten. Elizen arteko biblia

Oroit zaitez gutaz, Jauna, ager zakizkigu indartsu gure **atsekabealdian**. Elizen arteko biblia

Jauna, neure aita zaitut! Ez baztertu ni **atsekabealdian**, harroputzak nagusitzean, laguntzarik ez dagoenean. Elizen arteko biblia

Beraz, neure bizilaguntzat hartzea erabaki nuen, bai bainekien aholku onak emango zizkidala, eta kezka eta **atsekabealdietan** adorea. Elizen arteko biblia

Ahaide eta babesleek libratu egiten dute **atsekabealditik**: bi horiek baino gehiago libratzen du limosnak. Elizen arteko biblia

---

atsekabedun *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *izond* atsekabetsua.

I Am A Man Of Constant Sorrow (euskaraz "Etengabeko **atsekabedun** gizon bat naiz") Ameriketako Estatu Batuko Kentucky estatuko ia osoki itsua zen Dick Burnett biolinjoleak grabatutako folk abesti bat da. ETC-entziklopedia

---

atsekabegarri *izond* atsekabetzen duena.

Triste zirudien, amak bezala; biei zerien halako goibeltasun **atsekabegarri** bat. Ander Irizar

Assicurazioni Generaliko lan ordutegia -goizeko zortzietatik arratsaldeko zazpietara, inoiz iluntzeko zortzi edo zortzi eta erdiak arte ere bai- txit **atsekabegarri** gertatuko zitzaion Kafkari, eta halatan bederatzi hilabete besterik ez zuen egin etxe hartan. Pedro Alberdi

Mirari hau aipatu beharra daukat bereziki: mila aldiz okertu nintzen, eta arras **atsekabegarria** izango zen hura, musika errepikakorra bezalakoa, nire okerrak aldiro-aldiro bestelakoak izan ez balira; kalkulu bakoitzeko, mila emaitza desberdin lortu nituen. Joxan Elosegi

Esan dezaket ez dela ezer **atsekabegarriagorik**, etsigarriagorik, zenbat ihartu garen egunik egun ikustea, egunik egun nabaritzea baino.Zer ere baitut egin, zure natura, ohore eta aldartearen **atsekabegarri**, hemendik dagit aldarri eromenari zor zitzaiola. Urtzi Urrutikoetxea

---

atsekabetasun *iz* atsekabe izatearen nolakotasuna.

Jevonsek berak onartu zuen, ondorengo urteetan, "(merkataritzaren) aldizkako kolapsoak benetan mentalak direla beren izaeran, **atsekabetasun**, itxaropen, zirrara, etsipen eta izuikaran gertaturiko aldakuntzen mende daude eta". Iñaki Mendiguren

Graemetarren jauregia izan zitzaion babesleku, baina, egoitza dotore hura ere estua eta itolarri-eragilea bilakatu zitzaionean, Edinburgo hirira joaten hasi zen barrena pozoitzen zion **atsekabetasunetik** ihesi, eta ezinbestean entzun zituen Barbara Alleni egindako gorespenak. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

atsekabetsu *izond* atsekabe ematen duena.

Maite duzun norbait etxean gaixorik utzi eta gaizkitu ote den bihozkada duzunean berriro hara itzultzeko behartzen zaituen premia **atsekabetsu** horixe sentitzen nuen. Josu Zabaleta

Baina usadio **atsekabetsu** batek aurre hartuko zien jostaketei. Karlos Zabala

atsekabetu, atsekabe(tu), atsekabetzen da/du *ad* atsekabe hartu edo eman. ik **nahigabetu**.

Jauna, ene Jainkoa, ni bere etxean hartu nauen alargun hau ere **atsekabetu** egin behar al duzu, semea hilaraziz? armak hartu eta aurre egin zioten. Elizen arteko biblia

Jainkoaren zerbitzaria ez du ezerk **atsekabetu** behar, bekatuak izan ezik. Askoren artean

Antiokok ihes egin behar izan zuen handik, zeharo **atsekabeturik**, eta Babiloniara itzuli. Elizen arteko biblia

---

atsekabez *adlag* atsekabeturik.

Idatzi zion gutunean **atsekabez** mintzo zen. Fernando Rey

Eta bihotza itxi egiten da, baina ez **atsekabez** ez minez. Felipe Juaristi

Amaren besoetara itzultzen dute Haurra, Semetxoari zerion odola Amak **atsekabez** ikusten zuelarik. Patxi Altuna

-Zuen hildakoetako bat al da hori? -galdetu zuen On Camillok, **atsekabez**. Koldo Biguri

-Ez -esan zuen **atsekabez** -, horrelakorik ez dut ezagutzen. Migel Angel Mintegi

Ez zuen ondo lo egin, **atsekabez**. Gotzon Garate

Pippinek **atsekabez** begiratu zien opil ttipiari eta (bere ustez) inola ere nahikoa ez zen gurin-xafla ziztrinari. Agustin Otsoa

Egin behar duzuen bidaia horretan zoritxarren bat gertatuko balitzaio, hilobira bidaliko zenukete, **atsekabez**, agure ileurdin hau. Jose Antonio Mujika

Mundu helenikoa **atsekabez** jabetu zen erlijiozko hutsunea ari zela pairatzen. Iñaki Mendiguren

Rosik burua **atsekabez** higitu zuen: "Moskovics gaixoa", eta denak gentozen berarekin bat. Urtzi Urrutikoetxea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atsekabearen atsekabez** (6); **atsekabez betea** (4); **atsekabez beterik** (8); **atsekabez betetzen** (4); **atsekabez bizi** (3); **atsekabez hil** (3)

---

atsekabezko *izlag* atsekabeari dagokiona.

Gaur berri txarrak eta **atsekabezkoak** baizik ez ditut kontatzeko. Josu Zabaleta

Mr Worthing maitea, **atsekabezko** jantzi horiek ez ahal dira ezbehar izugarriren baten seinale izango! Antton Olano

Gero, intziri bat, **atsekabezko** txilio bat, hil hurren dagoen gizaki baten azken deia irudi. Karlos Zabala

Orduan egon ziur iritsi dela Jauna zure arimara, **atsekabezko** zalgurdian etorri ere, agindu zuen bezala: "Berekin izango nau larrialdian". Joan Mari Lekuona

Gauak, guztiz ilunduta, goibel eta **atsekabezko** zerbait eransten zion halako isiltasun misteriotsu eta sakonari. Koldo Izagirre

---

atsekaitz *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* atsekabea.

Zoriontasuna egoera bat izan ahal bada, bakarrik izan daitekeelako **atsekaitzetik** eratorritako urduritasun egoera bat. ETC-entziklopedia

---

atsitu **1** *izond* usain oso txarrekoa. ik **kirastu 3**; **kiratsu**; **kirasdun**.

Gero, ekaineko arratsalde sargorietan, kiratsa lurretik gora altxatu eta lurrun **atsitu** batek astundu zuen eguratsa. Karlos Zabala

2 irud/hed

Baina niri ere esaten zidan huts handia egin zuela ni mundura ekartzearekin, bere aitari batere errespeturik ez zion sasikume **atsitua** nintzela. Pello Lizarralde

Sinbolo kontuetan gabiltza, halaber, erdaraz baizik ez dakienari, edo euskaraz erdipurdika, txalo eta xalo egiten bazaio, eta bizkarra likurtatu, euskararen izen onean gainera, eta aldez aurretik euskaldun garbia denari ziztu **atsitua** jo, hor inolako kontraesanik ikusi gabe. Pello Salaburu

---

atso *(ETCn **4.327** agerraldi)* **1** *iz adkor* emakume zaharra. ik **atxo**; **agure**.

Neguko adar biluzien atzean **atso** baten ahots zimurtua entzuten dugu, bere bizitzako gertakizun batzuk azaltzen dizkigula. Berria - Kultura

Poltsako letxuga, sagar, patata sakabanatuen artean eserita geratuko dira, txilioka hasiko zaio **atsoa**. Iñaki Iñurrieta

Orain kaleetan jarriak izuzten zirkulazioa gelditzeko, **atsoei** eta haurrei pasatzen laguntzeko. Fernando Rey

Hori ere irakurrita neukan: hamabost urterekin emakumeak ziren, hogeita bost urterekin, emakume helduak, eta hogeita hamarrekin... batzuk **atsoak** ziren. Jon Muñoz

Horrela iragan zen Katherineren lehen gaztaroa, **atsoak** farfailgintzarako kuxintxo baten aurrean esertzen eta pazientziaz txirrika guztietako hariak xuxen gurutzatzen irakatsi aurretik. Juan Garzia

Eta dagoneko bi ordu iragan direlarik, erran zioat seme zaharrenari aqua-park arraio horretara nahi badu, doala **atsoa** zertan den ikustera eta errateko denak esperoan gaituela. Aingeru Epaltza

Baina, ama, lutoz jantzitako **atso** birekin hasi zen berriketan. Joseba Sarrionandia

Ondoan daukazun **atsoaren** abaniko-airea harrapatzen saiatu zara alferrik. Eider Rodriguez

Behin espiritista nintzela ere entzun nion **atso** bati. Hasier Etxeberria

Goizegi heldu da, ez dago dudarik: bospasei **atso** besterik ez daude, belauniko, elizako hiru nabeetan banaturik. Iban Zaldua

Ez al dago beste zereginik, **atsoak** bezalaxe zurrumurruen zain hortxe geldi egoteko, ala? Edorta Jimenez

Taldearen ibilera moteltzeko aparta, bai, **atsoa**. Aingeru Epaltza

Eseri egin nintzen berriro, ez nabarmentzeagatik batez ere, gure inguruko bezero guztiak, kalabaza koloreko ilea zuen **atsoa** barne, so baikenituen. Ramon Saizarbitoria

Ahotsa **atso** batena bezalakoa bilakatu zaidak. Patxi Zubizarreta

Marro jiratu, eta abiatu egin zen, besoa jaso eta "hago isilik heu, **atso** zaharra" esan nahiko balu bezala eginez. Juan Kruz Igerabide

Ezetz jakin nork garaitu ninduen atzo goizean, zuek zuen etxe madarikatuetan **atsoak** bezala euritik kukutzen zineten bitartean? Alberto Ladron Arana

Atsoak, akotea ozkan jarriz, kanta herrikoia aireratu zuen. Itxaro Borda

-Badakizu, **atso** hori, egia aitortzen duzun arte torturatzeko agindu dezakedala? Karlos Zabala

Egunero etortzen da **atso** hori galdera zelebreren batekin. Arantxa Iturbe

Nik ez diet etxe honetako **atso** nonzerberri guztiei zeresanik eman nahi. Lopez de Arana

Joanttok ez zituen begiak **atsoarengandik** urruntzen ahal. Elena Touyarou

Andrea galdu zuenetik ez zuela bururik altxatu esan zuten herriko **atsoek** hilobira eraman zutenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Emazte azkarra da, ez erraiteko **atso** puska bat badela. Eneko Bidegain

Eskuinean!, agindu zion Hermannek zakar, guztiok entzuteko moduan eta besokoa **atsoari** itzulirik. Anjel Lertxundi

Herriko enparantzara iritsi nintzen orduan, pozik ia, eta lehen polizia ikusi nuen, kaleko jantziekin, mandatuak egitera zihoazen **atsoen** erdian. Lander Garro

Sei dira guztira: aita-amak, hiru seme-alaba eta amatxitzat jo duzun **atsoa**. Xabier Montoia

Aitaren hitzei jaramonik egin gabe, hormaren eta etxearen tarteko atari bazter hura zeharkatu zuen **atsoak**, pauso makalez, eta atzetik joan gintzaizkion. Juan Kruz

Igerabide

Aurkituko diat moduren bat, bost axola niri **atso** zahar horrek zer dioen. Mirentxu Larrañaga

Arrapaladan bere atzetik irten sarreraraino eta papertxo batean idatzi nion, oraindik biluzik, kulero ñimiñoak jantzita, goiko **atsoa** eskaileretatik behera zetorren momentuan. Sonia Gonzalez

Atsoa laster itzuli da salgaiekin. Urtzi Urrutikoetxea

Eskatutakoa harrera mahaitxoaren gainean jarri eta bizkor patrikaratu zuen **atsoak**. Harkaitz Cano

Alchonon ganbara batean bizi zen, gorra eta erdi itsua zen **atso** alargun baten etxean. Koro Navarro

Ez zitzaien damutu, Antxonek ukondoan jotzen ninduen atertu gabe, loriatan zen, hura **atsoa**, filme bikaina zela aitortu zuen Txatok trenean. Koldo Izagirre

Urtero Figg andrearekin, burutik eginda zegoen eta bi kale harago bizi zen **atso** batekin, uzten zuten Harry. Iñaki Mendiguren

Ez zuen nahi eskua dardarka hasterik eta **atsoa** bere izuaz ohartzerik. Xabier Aranburu

Atsoa mezatara zoak, baina berandu zebilek. Xabier Paya

Andre zahar biren topaketa izango zen noski, **atso** birena. Xabier Montoia

2 (izenondoekin)

Ondoan eserita, esate baterako, **atso** ileurdin bat genuen, etxeko bata zarpail eta zapatila beroekin. Joxean Agirre

Atso zahar bat gaixo ei zegoen - hala zioten gure bagoian - eta pentsatzekoa zen zoratu egin zela, egarriz zalantza barik. Urtzi Urrutikoetxea

Idazleak bere burua **atso** zahartzat aurkezten du, beharbada denok erosoago senti gaitezen goiz alban idaztera jaikitzen den andre edadetuaren irudi topikoarekin. Berria - Kultura

Ez, inoiz ez!, erantzun zuen Chica andreak labur eta bortxaz, begiak erdi irekirik errebelazio mingarri baten zain balego bezala, eta Graça ia senez konturatu zen kolpea eragin ziola **atso** zimurtu eta lodi hari, azkenerako bere burua Napumoceno jaunaren bizitzako emakume bakartzat jotzen baitzuen. Bego Montorio

Miss Prism **atso** begi-laburra da orduan. Antton Olano

Laster Katherinek bertan behera utzi zuen bere farfailgin-lanbidea: zeren **atso** sudur-gorria Inozenteen hezurtegian usteltzen ari baitzen. Juan Garzia

Batzuk mahaian eserita harrapatu nituen, familia bat etxeko film bat egiten ari zen eta hemen aurreko dentista **atso** beldurti bat zaintzen ari zen. Josu Zabaleta

Pailazo zuriak gorrotatu izan ditut batez ere, bakailao gibeleko olioa baino gehiago, familiako **atso** bibotedunei eman beharreko musuak eta kalkulu mentala baino gehiago, haurtzaroko beste edozein tortura baino gehiago. Josu Zabaleta

Egia aitortu behar badut, asko harritu ninduen Hermannen egintzak: iruditu zitzaidan energia gehiegi xahutu zuela **atso** triste batekin. Anjel Lertxundi

Eta intxixuak ere badaude, gehienak joskinak gainera; eta azpitik erreka duten leizeak, eta sei anaia nagusi dituzten printzeak, eta erortzear dagoen txabolatxo bat, eta **atso** zahar-zahar txiki-txiki bat, sudur okerra duena. Julen Gabiria

Zer zen, bada, aurrean zuena, odol hotzeko **atso** makur eta askojakina baino? Ibon Uribarri

Buruan zeukan neska bikainaren ordez, **atso** popahandi bat aurkitu zuen han barruan, xiringatzarra eskuan. Jon Arretxe

Zaharra zara gero, **atso** gaixo hori! Itziar Otegi

Une horretantxe gaizki sentitu zen, besteen berbaldiak entzuteko horman belarria jartzen duten **atso** kuxkuxero horietako baten modura, etxeko leihoan behatokia etengabe eraikita duten horietako bat bezala: babestuta sentitzen dira pentsatuz inor ez dela konturatuko egiten ari direnaz. Joxemari Iturralde

Han, hautsez beteriko gela zahar batean, **atso** gor bat topatu zuen, erregeren debekuari buruz ezertxo ere ez zekiena, tramankulu bitxi bati eragiten. Iban Zaldua

Gerran irakurritako espioi-nobelen errua izanen zen, baina Mitxelenaren antzeko ekintza-gizon zaildu bat espero nuen, ez **atso** zarpail hura. Alberto Ladron Arana

Eta **atso** hordiaz, lo zerraldo dagoen lagunaz, emakume apasionatuez? Anjel Lertxundi

Popatik **atso** madarikatua. Harkaitz Cano

-Guztiz itsu doaz, baietz **atso** zorrizto bateri ere esan! Sonia Gonzalez

Ikusten dituzu zazpi astoren gainean Santa Ana komentu aldera txantxibirika doazen hamalau **atso** tronpeta-jole horiek? Anjel Lertxundi

Zenbait nekazari, zenbait zinegotzi, zapataria ere hil, **atso** pobreak biltzen ziren eguzki tokia, carasola metrailatu zuten. Pablo Sastre

Zaude ixilik, **atso** zikina! -oihukatu zion Amatxik-. Ramuntxo Etxeberri

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Eta zuk uste duzu don Pedrok, daukan jenioarekin, lasai onartuko lukeela beraren semeak **atso**-tratuan segitzea? Juan Garzia

Sexismoari itzuri ezinik, ez dago zalantzarik, **atso** kontuak dira gezurrak, edo dotoretuta, andrearen negarra. Iñigo Aranbarri

Zehazki, bere **atso**-burua erakutsi eta honela esango zion unearen beldur zen. Jose Morales

2 ***atso-agure*** *pl*

Hortxe dago tranpa, eta hargatik dira zahar jakintsu kontseilu-emaileak horren antojagarriak, eta maitagarria, aldiz, ez dakitela gozo-gozo aitortzen dakiten **atso-agureen** zuhurtzia ezjakintsua. Iñaki Segurola

Urte pila zaramatzatek han **atso-agureek**, eta oraindik Extremaduran janzten ziren moduan jarraitzen ditek kalera irteten. Iban Zaldua

Betikoa: **atso-agureei** lapurtu, beste batzuk mehatxatu eta segurtasun eza areagotu egin du Yoniren bandak. Berria - Euskal Herria

Atso-agure saldo batek inguraturik zeuzkan, nork doluminik sentikorrena adierazteko lehian. Aingeru Epaltza

Atso-agureen bakardadea ogi-apurretan janez gizentzen dira hiriko usoak. Joxerra Garzia

Handik gutxira, **atso-agure** talde bat sartu zen elizara. Koldo Biguri

Zenbat eta handiagoa izan elur-zokorra, zenbat eta **atso-agurearengandik** hurbilago lurraren kontrako talka, are eta handiagoa zen gaztetxoen ospakizuna. Berria - Kultura

Tarifa jaitsiz zihoan jende gazteen gorpuetatik **atso-agureen** gorpuetara. Juan Garzia

3 ***atso-besta*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Haur egin eta gero, sendatu eta hurrengo jai-egunean edo, ahaide, auzo edo adiskide emakumeak heldu ziren ama berria ikustera, mokadu bat jan eta zurrut bat egin eta, elkarrekin egoten ziren: **atso-besta** edo atso-lorra deitu izaten zen bilkura-modu hori. ETC-literatura, saiakera

4 ***atso ipuin***

Bazter dezagun ordea haur uste hori **atso ipuinen** ondoan. Jon Muñoz

5 ***atso sorgin***

Hobe erreko balute **atso sorgina**! Javi Cillero

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

agure eta atso (2); **atso agure** (2); **atso agureen** (3); **atso alargun baten** (2); **atso andaluz** (2); **atso andaluza** (3); **atso bat** (28); **atso bat aurkitu** (2); **atso bat azaldu** (2); **atso bat ikusi** (3); **atso bat izan** (2); **atso bat zegoen** (2); **atso batek** (11); **atso batekin** (2); **atso baten** (3); **atso batengana** (2); **atso bati** (2); **atso batzuek** (2); **atso batzuk** (2); **atso beldurgarri** (2); **atso ero** (3); **atso eskale** (3); **atso eskale serios** (3); **atso gaixo** (2); **atso guztiak** (2); **atso haien** (2); **atso hilaren** (2); **atso hori** (7); **atso horrek** (3); **atso hura** (3); **atso ijitoari** (2); **atso ile** (3); **atso ile zuriak** (2); **atso ileurdin** (2); **atso itsusi** (2); **atso izengabearen** (2); **atso kontuak** (2); **atso madarikatu** (3); **atso madarikatu horrek** (2); **atso neskazaharrak** (2); **atso txiki** (2); **atso txikiak** (2); **atso xahar** (4); **atso xahar bat** (3); **atso zahar** (35); **atso zahar guztiei** (2); **atso zahar hori** (2); **atso zahar horrek** (2); **atso zahar zahar** (2); **atso zaharra** (12); **atso zaharrak** (7); **atso zaharrari** (2); **atso zaharren** (6); **atso zaharren bat** (2); **atso zaharren erran** (2); **atso zimurtu** (2); **bi atso** (2); **bospasei atso** (2); **ugaldeko atso** (4); **zabalgunekо atso** (2)

agertu zen atsoa (2); **atsoa deitzen** (2); **atsoa eta tupina** (6); **atsoa ez zen** (3); **atsoa ikusi** (2); **azkaineko atsoa** (2); **hura atsoa** (2); **ugaldeko atsoa** (2)

agure atsoak (2); **atsoak alde egin** (2); **atsoak bere** (2); **atsoak bezala** (2); **atsoak esan zion** (2); **atsoak ez zuen** (2); **atsoak jarraitu** (2); **atsoak ziren** (2); **bi atsoak** (2); **egin zuen atsoak** (4); **erantzun zion atsoak** (3); **esan zion atsoak** (3); **esan zuen atsoak** (9); **galdetu zuen atsoak** (2); **jarraitu zuen atsoak** (3)

atsoarekin batera (2)

agertutako atsoaren (4); **atsoaren afera** (2); **atsoaren aferan** (2); **atsoaren semea** (2); **ugaldean agertutako atsoaren** (3); **ugaldeko atsoaren aferan** (2)

atsokeria *iz* sinetsi behar ez den esana edo kontua.

Afaldu bitartean aitak esaten zion amari: "Ez zara aspertu **atsokeriatan** ?". Fernando Rey

---

atsolor *(corpusean ez dago; ETCn **228** agerraldi) iz* ume jaioberriaren eta haren amaren inguruan antolatutako festa.

Atsolorra (baita ere **Atsolor**, Atsolorreta, Atsobesta, Bateoa, Andraikustea, Andreikustea) garai batean Euskal Herrian egiten zen jaiotza-erritua zen. ETC-entziklopedia

Frantsesa hil zutenean **atsolorra** baldin bazen Farolan, 1883an jaiotako horrena edo lehenagokoren batena beharko zuen. ETC-literatura, saiakera

Goizetik haientzat ekitaldiak antolatu dituzte plazan, eta, eguerdian, **Atsolorra** egingo da udaletxean, aurten jaiotako haurrei harrera eginez. ETC-prentsa

Ereñotzun (Hernani, Gipuzkoa) **atsolorra** egin zuten apirilaren 29an, 2011n jaiotako haurrei auzoan ongi-etorria emanaz. ETC-prentsa

Atsolorra esaten zaio urtean zehar jaiotako haurrei harrera egiteko ohitura horri, eta eliza katolikoaren bataioaren ezarpenaren aurretik Euskal Herrian . ETC-prentsa

Atsolor festa eremu batzuetan XX. menderaino iritsi zen: amak, haurra izan ostean, inguruko baserrietako andreak gonbidatzen zituen arratsalde batez, haurra auzoan aurkezteko. ETC-prentsa

Haurra jaiotakoan, **atsolorra** egiten zuten: emakume haren etxean biltzen ziren auzoko etxeetatik emakume bana. ETC-prentsa

Atsolorra bizian ezagutu zenuen. ETC-prentsa

---

atsoluto ik **atsolutu**.

---

atsolutoki ik **atsolutuki**.

---

atsolutu *(orobat **atsoluto**) iz* erabatekoa.

Bikia izanaren sentsazioan, itolarritasun eta ezin handiagoko tentsio eta presiopean nintzen, edo ginen, tokirik gabe eta bero kixkalgarrian, estu, tinko, ia bata bestearen gainean, azpian, barnean..., simetria ia **atsolutuan** . Jose Angel Irigaray

Urgentzia **atsolutozko** prozedura. Itxaro Borda

---

atsolutuki *(orobat **atsulutuki** ipar) adlag* erabat, modu atsolutuan.

Agatak izenak pentsagai zituen; alabaina, lankide bat bazuen ThÈrËse deitua izatea eskatzen zuena **atsolutoki** , gehienei eskapatzen zitzaion Tehexaren ordez. Itxaro Borda

Jakesek nahi zuen **atsolutoki** Lakabira bereganatu, zedarrietan han hara zegoen iraztor heze baten trukean. Itxaro Borda

-Hemendik hiru hilabeteren buruan, elkar ikusten ahalko dugu, Gexan, **atsolutuki** nahi baduzu. Janbattitt Dirassar

Eta Garaziren aitak, azoka egunean behintzat, **atsolutuki** baitzuen Baionara nahi. Txillardegi

Atsolutuki nahi dut etxaldearen segidaren hartzea markatu. Daniel Landart

- **Atsolutuki** nahi baduzu ene herrirat etorri, zatoz, zatoz!. Janbattitt Dirassar

Seriosa bahintz, ez hintzen hola ariko, ene eskua **atsolutuki** hartu beharrez. Janbattitt Dirassar

Senditu nuen Colettek **atsolutuki** jakin nahiko zukeela zein izan ziren delako hitzak. Daniel Landart

Gaixo serorak nolako baldintzetan lanean ari ziren ikusirik, urrikitu zen Charles d'Abbadie d'Arrast, Etxauzko jauna, eta nola **atsulutuki** nahi baitzuen herriko nexkatxak eskolatuak izan diten, bere gain hartu zuen etxe eder baten eraikitzea eskola gisa. Michel Oronoz

Naziek **atsulutuki** zilatu nahi zuten auzapeza nora suntsitua zen. Eneko Bidegain

Bainan ni ados niz, gisa guziz, dei orokorra zabaltzen dutelarik, **atsulutuki** bazterrak behar direla harrotu. Menane Oxandabaratz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atsolutuki nahi** (4)

---

atsotasun *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* atso izatearen nolakotasuna.

Atsotasunaren aldarri poetikoa. ETC-prentsa

Erretiroa zahartzaroarekin, aguretasunarekin edo **atsotasunarekin** erlazionatzen da askotan, eta muga fisiko, funtzional eta psikosozialak ditu ezaugarriak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

atsotitz *iz* esaera zaharra, errefraua.

Begira honako **atsotitz** honi: Eguberri ondorengo lehenbiziko sei egunak nolako, hurrengo urteko lehenbiziko sei illabeteak halako. Pello Zabala

Honako **atsotitz** honek dioena ere deitura horietatik jaso beharra dago: Lazarok xoria harrapatu, Erramuk lumatu eta Pazkok jan. Pello Zabala

Urtarrileko lehen hamabi egunak, zotalegunak, seinalatzen du garbi **atsotitzak** . Pello Zabala

Baditu Eguberriak **atsotitz** mordoxka erantsiak, eguraldi jeneroari ukitturen bat eman nahi diotenak. Pello Zabala

Bestalde, otsail ttikiak egundoko **atsotitz** pila du bere bizkar extuan bildua. Pello Zabala

---

atsotiztegi *iz* atsotitz hiztegia.

Arte espainol guztian, zuzenbidean, **atsotiztegian** , zientzian, literaturan, arima hori islatzen da edonon. Joxe Azurmendi

---

atsotu, **atsotzen 1** da-du ad emakumeez mintzatuz zahartu, zahar-itxura hartu.

Neure biotzeko Amatxo zarra, / Antxiñako ama Euskera, / Seme leial bat orain datortzu / Azken agurra emotera; / Ainbeste gerra goitu ezinda / Danori **atsotu** zara, / Zaurien zauriz galdu-galduta / Amatxo, zoaz, iltera. Xabier Mendiguren Elizegi

· Egia da **atsotu** hitzak, xuxen mugatzen zail diren arbuio antzeko esanahi ugari bereganatzen dituela, baina aguretu hitzak ere bai beste franko. Patziku Perurena

Hala eta guztiz ere, euren hiru alabak ezkondu zituen emazte **atsotu** hura bakarrik zegokeen lo neguko gau hotz hartan. Ibon Uribarri

2 (era burutua izenondo gisa)

Hala eta guztiz ere, euren hiru alabak ezkondu zituen emazte **atsotu** hura bakarrik zegokeen lo neguko gau hotz hartan. Ibon Uribarri

---

atsulutuki ik **atsolutuki**.

---

attona *iz adkor* aitona.

Eta beste bat **attonarengatik** -esan zion irribarrez mozkor kulunkariari. Koro Navarro

Ho, ho! Ihardetsi zion ermitak, begiak dirdiran, egia handia da baina laurogoita hamar urteko **attona** batek ere oraino. Herria

Tenporak (ahoa gora luzatuz) aaaspaldikoak omen direla, oooso aspaldikoak, gure **attonak** eta, betidanik hala ikasi omen zuten. Pello Zabala

---

attrezzo ik **atrezzo**.

---

atun 1 *iz Thunnus* generoko arraina, bereziki hegalaburra *(Thunnus thynnus).* ik **hegaluze**.

Entsalada handi bat ari da atontzen Luzia, hau dun ene jakirik gogokoena, esan berri dio Lucyri: letxuga, tomatea, tipula, piper berdea, arrautza egosia, endibiak, azenarioa, **atuna**, esparragoak, artoa eta aguakatea, izugarri gustatzen zaidan. Joxemari Iturralde

Berdin oroitzekoa larunbateko bazkaria, hor ere hiru herriak partzuer bixtan da, ziburutarrek hiru ehun eta zonbait lagunentzat prestatzen zutela **atuna** biperradarekin! Herria

Atuna zein berdela, arrantzaldia ahitzen zenean, amaieraren ikur eta ospakizun gisa, beste doinu bat paratu ohi zuen tabernariak, doinu parea hobeto esanda: "Eusko Gudariak" eta "Internazionala" elkarren segidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Donibane Lohizune eta Ziburukoalde hortan, galdetzen baduzu nolakoa izan den aurten **atunaren** sasoina, ez dautzute denek ihardespen bera eginen. Herria

Espantu egitekorik ez dute lapurtar arrantzaleek aurtengo **atunaren** kanpainaren ondotik. Herria

Uda honetako **atunaren** kanpaina kaskarrak eta itsaso komunitarioaren gora beherek egun hura ekarri didate gogora. Hasier Etxeberria

Halatan zela soka-tira txapelketa, **atunaren** besta, dantza folkloriko emanaldi, denetan kausitzen zen, Nasa hutsik egoteak antxoa garaia esan nahi du, edo sardinarena, edo **atunarena**, hau da, lanerako garaia eta lanerako itsasoa, partila ona mareajea amaitutakoan. Itxaro Borda

Ni ez nengoen hemen, **atunetan** genbiltzan! Koldo Izagirre

Zokorik arriskutsuenetan jarduten zuen lanpernatan, **atunetako** amu bat ibili zuen hilabetean belarritako, guk arraunketa naturalean baino arinago eramaten zuen batela ziaka. Koldo Izagirre

Atun handien aldamenean anaikor lokartzen zen, berdel eta liben artean esnatzen. Karlos Zabala

Atun goxo-goxoa. Kontserbako **atuna** oso goxoa gelditzen zen tipula pixka batekin. Bernardo Atxaga

Gero, maite diat ere holako marmitakoa egitea... **atunarekin** eta patatak saltsan-eta... piperrarekin. Menane Oxandabaratz

Ikusi ditut 70 urteko amonak inoiz **atun** lata bat probatu ez zutenak. Pako Aristi

Platteren eta azpilen artean, paper puska urdinez egindako azpi baten gainean botata, foie-gras ontziak eta kolore aldakorreko **atun** eta sardina latak ageri ziren. Karlos Zabala

Gero, mahaian eseri eta hanburgerrak, **atun**-entsaladak eta griselan berotutako gaztazko sandwichak eskatu genituen. kontserbazko **atun**-platera osatzeko patatak egosi zituen. Oskar Arana

Usaiako **atun** ontzia, txorizo puska bat, gasna, sagar eta laranjak. Piarres Aintziart

Donibane-Ziburuko **Atun** besta. Herria

2 *atun gorri*

Atun gorriaren kasuan ez dira arras jazkoaren erdira heldu (274 tona). Herria

3 *atun hegaluze* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Bakailaoa pil-pilean? Txipiroiak saltsa beltzean? Piperrak bakailaoz beteta? Legatza saltsan? **Atun hegaluzea**. ETC-prentsa

4 *atun moja* *(corpusean ez dago; ETCn 10 agerraldi)*

Atun moja ("Thunnus obesus") Scombridae familiako ur gaziko arraina da, munduko itsaso tropikal eta epeletan (Mediterraneoan izan ezik) bizi dena. ETC-entziklopedia

Honela, aurtengo uztailaren erdialdera, proba aitzidari moduan, oraindik aukeratu gabeko sei itsasontzik hegalaburrak eta **atun moja** "japoniar erara" harrapatuko dituzte ondoren han saltzeko. ETC-prentsa

" **Atun moja** " esate baterako, gure arrantzaleek oso gutxi harrapatzen dute, eta honelako erabaki batek bultzatu egingo lituzke horiek harrapatzera. ETC-prentsa

Gainera, Greenpeaceren arabera, beste atun mota batzuen kumeak ere harrapatzen dituzte: esaterako, Ozeano Barean aritzen direnean **atun moja** izeneko motaren kume asko harrapatu ohi dituzte. ETC-prentsa

5 *atun-plater*

Arropaz aldatu zen, eta nola edo hala lehortu zelarik, Raimundo Silvak bazkaria prestatu zuen, kontserbazko **atun-platera** osatzeko patatak egosi zituen, horixe izan zen azkenik hartu zuen erabakia, zeuzkan aukerak, urriak, aztertu eta gero, ohiko plater zoparekin ondu zuen eskastasun hau, horrela nahikoa suspertua eta energiaz indarberritua sentitu zen. Jon Alonso

6 *atun txori* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

20.000 kilometro egiten ditu, esaterako **atun txoriak** zirkulu artikotik Afrika hegora. ETC-prentsa

Guk **atun txoriei** martinak esaten diegu. ETC-literatura, saiakera

7 *atun zuri* *(corpusean ez dago; ETCn 20 agerraldi)*

Harrapaketak murrizteak ez du soilik antxoan, eta neurri txikiagoan, legatzean eraginik izango, **atun zuriaren** harrapaketak ere murriztuko omen baitira aurtengo bigarren kanpainatik hasita. ETC-prentsa

Urte berri honen lehen hiru hilabeteetan erabaki liteke **atun zuriaren** harrapaketen murrizketaren gainean. ETC-prentsa

Atun gorria edo hegalaburra eta **atun zuria** edo bonito edo hegaluzea. ETC-prentsa

Atun zuriaren solomoa, mendrezka eta kokotea olioarekin eta gatzarekin nahasten dituzte, ez besterik. ETC-prentsa

Hegaluzea eta antxoa dira euren produktu nagusiak: **atun zuria** eta Kantauri itsasoko antxoa. ETC-prentsa

Hegaluzea edo **atun zuriaren** kasuan, 2000. urtean ez zen murrizketa berezirik ezarri, ez Europako Batasuneko uretan ezta nazioarteko uretan ere; dena den, arazo larriena arrantza-arteetan egon da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hegal hitza erabili da, hegaluze (Sarda arda L.) **atun zuriaren** izendatzeko bestea, hegalaburra (Thunnus thynnus L.) atun gorria delarik. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atun besta (30); **atun bestaren** (5); **atun lata** (3)

suzko atuna (3)

atunaren arrantzaldia (3); **hegaluzearen eta atunaren** (5)

atunburu *iz* irain hitza.

Eta tiro hotsen imitazioak egiten zituen, ardotara jausten zen **atunburu** hark. Joseba Sarrionandia

Ez genien tabakorik eskatu Stella Maris-etik zabuka zetozen finlandiarrei, ez ginen saiatu pikategi ertzean amarratuak zeuden herdoilontzietan sartzen, ez genien trufa egin irraileko estropadetarako entrenatzen ari ziren **atunburuei** . Koldo Izagirre

Ez nauzue eramango, **atunburuok** ! Joseba Sarrionandia

---

atunetan *adlg* atun arrantzan.

"Ni ez nengoen hemen, **atunetan** genbiltzan!" esaten didate, eta flota etorrarazi zutela entzuna daukadala komentatzen dudanean "A, bai, egia da...!". Koldo Izagirre

Romerorekin batera istorioak ere barra-barra kontatu ditu: **atunetan** zebiltzala, ontzia Cadiz aldean utzi, taberna batera trago bat hartzera joan, Donostiakoak ziren emakume birekin ligatzen saiatu eta polizia nazionalak zirela jakin zutenekoa. Berria - Harian

---

atungorri *(corpusean ez dago; ETCn **60** agerraldi) iz* atun mota, bizkarralde urdinxka eta zilar koloreko sabelaldea duena *(Thunnus thynnus)*. ik **hegalabur**.

Hegalaburra, zimarroia edo **atungorria** ("Thunnus thynnus") ur gazitan bizi den Scombridae familiako arrain urdin mota bat da, sukaldaritzat oso haintzat hartua. ETC-entziklopedia

Ezpata-arraina, marlina, arrain enperadorea, **atungorria** , albakora, marrazoa, bela-arrainak, eta abar harrapa ditzakegu arrantza mota honekin. ETC-entziklopedia

Horrez gain, 1,9 milioi kilo **atungorri** harrapatu dituzte, iaz baino 200.000 kilo gutxiago. ETC-prentsa

Batean zein bestean jaio izan, **atungorriak** (Thunnus thynnus) heldutasunera ailegatzean bere jaiotze-lekuetatik irten eta Atlantikorantz jotzen du, eta Mediterraneoan jaiotakoa izan nahiz Mexikoko Golkoan jaiotakoa izan, nahastu eta elkarrekin bizitzen dira ugalketarako adinera heldu arte. ETC-prentsa

Atungorriarekin ez al da antxoarekin bezala pasako? ETC-prentsa

Ezin dugu **atungorririk** hartzen ahal, batzuek gaizki jokatu eta dena suntsitu dutelako. ETC-prentsa

Besteak beste, sushi, sashimi eta **atungorri** eta izokina jango dute hara joaten direnak. ETC-prentsa

Atungorriaren arraintza % 4-ez murriztua 2011n. ETC-prentsa

Atungorriaren harrapaketak ez dira hain txarrak izan Gipuzkoan eta Bizkaian, eta Lapurdin gora egin dute . ETC-prentsa

Lapurdiko arrantzaleek ez dute onartu **atungorriaren** komertzioaren debekua. ETC-prentsa

Atungorriaren kuota eskasa "erabateko desengainua" izan da Jaurlaritzarentzat . ETC-prentsa

Japoniarrek sashimi platera maite dute, eta **atungorria** omen barietaterik maitatuena. ETC-prentsa

Arrandegiak ez ezik, erosleak ere garaikoa du gustukoen, baita Arzak jatetxeak ere: "Azkenaldian, hegaluzea, zapoa eta legatza eraman ditu: orain, **atungorria** eta mendrezka erosten digu". ETC-prentsa

Aztik **atungorriaren** ugaritasun indizea landu du aurten ere . ETC-prentsa

---

atunketa *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* atun arrantza.

Atzo piratei izkin egin zien beste ontzia, Artxanda, Atunsa enpresarena da, eta **atunketarako** ontziei sareekin laguntzen die. ETC-prentsa

---

atunketari *iz* atunak harrapatzeko itsasontzia.

Soldaduek ekin zioten himno nazionalaren metalei gain hartzen ziela, halako hots lazgarri bat heldu zen beheko kaitik, luze, **atunketari** eta lebatzero guztiak tutu joka hasi baitziren, orain ere adio egiten, urte zaharra eta gauerdi balitz bezala Koldo Izagirre

---

atunketari *iz* atunak harrapatzeko itsasontzia.

Soldaduek ekin zioten himno nazionalaren metalei gain hartzen ziela, halako hots lazgarri bat heldu zen beheko kaitik, luze, **atunketari** eta lebatzero guztiak tutu joka hasi baitziren, orain ere adio egiten, urte zaharra eta gauerdi balitz bezala Koldo Izagirre

---

atunki *iz* atun haragia.

Besta komiteak indar gaitza eta guziz goresgarria egin du denentzat bazkari on baten prestatzeko, bereziki **atunkia** ilar xehe batzuekin, ahotik ezin utzia! Herria

Hor ere giro hauta eta jende ainitz, bereziki bixtan da urririk emaiten zutelarik **atunkia** jasta! Herria

---

atunontzi *iz* atunak arrantzatzeko itsasontzia. ik **atunketari**.

Murueta herrian egin zituen adierazpen horiek Ibarretxek, Bizkaian, **atunontzi** bat uretaratzeko ekitaldian parte hartu aurretik. Berria - Euskal Herria

---

atuntxiki *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi) iz* atunaren familiako arraina, hegaluzea baino txikiagoa *(Sarda sarda)*.

Lanpoa edo **atuntxikia** Scombridae familiako eta "Euthynnus", "Katsuwonus" eta "Sarda" generoetako itsas arrainen izen arrunta da. Atunen antz handia dute eta batzuk jangarriak dira.. ETC-entziklopedia

Lanpo bularpikarta ("Euthynnus alletteratus") edo soilik **atuntxikia** (beste espezie batzuekin batera) Scombridae familiako ur gaziko arraina da, Ozeano Atlantikoan, Mediterraneo itsasoan eta Itsaso Beltzan bizi dena. ETC-entziklopedia

Lanpo haginzorrotza ("Sarda sarda") edo soilik **atuntxikia** (beste espezie batzuekin batera) Scombridae familiako ur gaziko arraina da, iparraldeko Ozeano Atlantikoan bizi dena. ETC-entziklopedia

Lanpo sabelmarraduna ("Katsuwonus pelamis") edo soilik amia edo **atuntxikia** (beste espezie batzuekin batera) Scombridae familiako ur gaziko arraina da, mundu osoko itsaso eta ozeano epel eta tropikaletan bizi dena. ETC-entziklopedia

Batik bat haiek erabili izan baitituzte 1985az geroztik horrelako aparailu jadanik legez kontrakoak **atuntxikia** harrapatzeko, eta, ondorioz, espezie hori urritu egin da Bizkaiko Golkoan. ETC-prentsa

Espezieka, antxoaren harrapaketak %11,3 gehitu ziren; hegalaburrarenak eta **atuntxikiarenak** , aldiz, %60raino murriztu ziren. ETC-prentsa

Atun izenarekin saltzen dituzten laten barruan, berriz, **atuntxikia** dago. ETC-prentsa

Hegaluzearen ordez, atun gorria, moja, marraduna, **atuntxikia** , melba, lanpoa eta beste hainbeste. ETC-prentsa

---

atunzuri *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)* *iz* atun mota, haragia hegalaburrak bezain gorria ez duena*(Tunnus alalunga)*. ik **hegaluze**.

Hegaluzea edo **atunzuria** ("Thunnus alalunga") ur gazian bizi den Scombridae familiako arrain urdin mota bat da. Ez du haragia hegalaburrak (atungorriak) bezain gorria, hortik izena. ETC-entziklopedia

Haragia hegaluzeak (**atunzuriak**) baino gorriagoa du, hortik izena. ETC-entziklopedia

Horren adibide bada, neurri batean, oro har gehienok atuna deitutako arrainari erreferentzia egiteko herriko arrantzaleek duten hiztegi zabala: hegaluzea (**atunzuri**), hegalmotza (hegalabur, atungorri), matrail beltza, monua... ETC-prentsa

Denera, 10.500 kilogramo **atunzuri** porturatu zituzten, eta kiloa batez beste 5,6 euroan saldu zuten. ETC-prentsa

Haietatik deskargatu dituzte ehunka **atunzuri**, dirdira handiko aho-okerrak. ETC-prentsa

---

atx **1** *iz* mina, ezustea edo nahigabea adierazteko hitza.

Atx, lerro hau okertu zait! Pello Salaburu

Berak **"atx**!, **atx**!" egiten du, nire ile latzek zauritu egiten baitiote azaltxo guria. Gotzon Garate

- **Atx**! -kexatu zen Imanol. Fernando Morillo

Atx! Anton Garikano

Zuk, Lidia, Téleforen lepondo gorria laudatzen duzunean, eta bere beso argizari kolorekoak, nire gibela, **atx**! Patziku Perurena

Atx! Pablo Sastre

Atx!! Michel Oronoz

2 ***atx-atx egin*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Harritua gelditu zen, eta apolarrua atera zitzaion, aitzineko aldeko tresnak odol artean nolanahi barreiatuak, eta Elisa negarrez, **atx-atx egiten** zuela, ikusi zituelarik, minak bere gorenean. ETC-literatura, saiakera

3 ***atx egin*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Atx egiteko artean, belus eta saten beltzez, kapelu bele lumaz apainduez eta atxabitxizko jipoi leinurutsuz bete zen Lyongo errege jauregia. ETC-literatura, saiakera

Zeinak **atx egin** gabe erortzen baitziren zorura, heriotza izoztuko orbitekin guri begira. ETC-literatura, saiakera

Atx egiten du euskara egoera diglosikotik atera nahian, eta iaz ere ez du huts egin zeregin horretan. ETC-prentsa

---

atxabaldar ik **aretxabaletar**.

---

atxabaltar ik **aretxabaletar**.

---

atxabitxi *iz* lignito mota bat, bigarren mailako harribitxitzat hartua. ik **arbeltx**.

Pippin laster egon zen beltz eta zilar koloreko arropa arrotzekin jantzita: plakin txikia, altzairuz egindakoa agian, baina **atxabitxia** bezain beltza hala ere. Agustin Otsoa

Begiak ilun eta ile **atxabitxizko**, boli-koloreko azala zuen emakume gazte bat sartu zen gelan. Lopez de Arana

Dukearen jakak urrezko eta zilarrezko brodatuak zituen, zetazkoak eta **atxabitxizkoak**, baita haren galtzek ere; kondea, berriz, beltzez jantzia zihoan. Joan Mari Irigoien

Bien bitartean, ganba eta izkira zuriek, otzaren barrutik, beren milaka begien **atxabitxizko** botoi ia ikusezinak jartzen zituzten pila haien emetasun lausoaren erdian. Karlos Zabala

---

atxakia ik **aitzakia**.

---

atxamarta *iz* arrantzan egiteko aparailua.

Dragak badakar basatzaren artean metal herdoilezin pusketa bat bristadaka, ukabilaren **atxamarta** askatu eta eskuturretik heltzen dit, kontalari gaitza dela agurea. Koldo Izagirre

Gau zarratuan irtena zenean bezala piztua, diosala harrera ongi etorria, hemen naukazu aiduru, **atxamarta** tinko baten estatxa. Koldo Izagirre

Atxamartaren estatxa korapiloztatuari erreparatu zion, laburragoa zen orain. Koldo Izagirre

Egiazko **atxamarta** azoka, egundainoko hustualdia. Joxan Elosegi

Antigoaleko gauzen zale handia zen, salmenta-areto eta **atxamarta** azokena bezala. Joxan Elosegi

---

atxapar **1** *iz* zuhaixka aihentsua, lore usaintsuak ematen dituena*(Lonicera sp.)*. ik **sasiama**.

Burura datozkit, orobat, nasailoreak eta **atxaparrak**, eta zalkeak, eta kuku-prakak, eta garikota gorriak, eta arkakaratsak. Mirentxu Larrañaga

Atxapar-lorearen atzean gordeta egon zen begira. Anton Garikano

2 ***basoetako atxapar*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Landare igokariak, hala nola, huntzak eta **basoetako atxaparrak** hariztiko enborretan gora hazten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

atxeki ik **atxiki**.

---

atxekimendu ik **atxikimendu**.

---

atxeman ik **atzeman**.

---

atxeter *iz* sendagilea.

Zumaiako **atxeterra** joan da etxe batera eta gazte bat hilda aurkitu du. Gotzon Garate

---

atxik ik **atxiki**.

---

atxiki[1], atxik(i), atxikitzen **1** zaio/dio/du *ad* itsatsi, erantsi, heldu; eutsi, mantendu.

Finala ttipian, hirugarren tokiarendako, metzikanoek menean **atxiki** dituzte gipuzkoarrak. Herria

Auzi horri josia bada bixtan da besteño bat: esposatzen den emaztekiak bere izena behar duen aintzina **atxiki** ala senarrarena hartu. Herria

L. eta bere lagun baloi biltzailearentzat, semenarioan **atxikiak** izan baitziren. Herria

Baina amak azaldu dit norbait maite izateak pertsona horri **atxikia** egotea esan gura duela, eta bere irudiko amaordeari **atxikia** nago ni. Urtzi Urrutikoetxea

Nik neure kremailerazko karpeta horia **atxiki** nuen bakarrik. Joxe Austin Arrieta

Hala ere, mintzoa ez dator buruzagiaren ahotik, hark berak esku artean **atxikitzen** duen irrati-aparatutik baizik. Aingeru Epaltza

Haren bulegoak bi aurre-gela zituen, alde banatara **atxikiak** buru bati belarriak bezala. Matías Múgica

Emakumeari laguntasuna erregutu gura zion, baina eserlekuan **atxikitzen** zuen izu laborriak, mutu. Unai Iturriaga

Mundu irudikaezin eta arrotz batean bizi den haur baten barnera iristeko eta hari **atxikitzeko** gizagaindiko eginahalak egin arren, gerta daiteke iruditzea alfer-alferrik ari direla. Xabier Olarra

Aizkoraren bat eskura izan balu, edo burduntzi bat, edo aitaren bularra txikitu eta hilko zuen beste edozein arma, Jamesek **atxiki** egingo zion orduantxe. Anton Garikano

Baina, hor, 400-500 metro altuerako apalean, airezko maila zeharrargi ikusezin batek banandu eta **atxikiko** du, beheko aire hotzarekin nahasi gabe, hortik gora 8 gradutan dagoen aire epela. Pello Zabala

-Izugarri pozten nau zu ezagutzeak, maitea -agurtu zuen Smithers andreak, Monaren eskua hartuz eta bere eskuen artean **atxikiz** -. Fernando Rey

Eta haiekin egin izan dut amets, behin baino gehiagotan, lotan nengoela... baita esna ere, bestela ezin esplika baitaiteke nola egon izan naizen aeromodelismoari hain lotua eta **atxikia**. Joan Mari Irigoien

Kantuak bai, dio Borrowek Ichasoa urac aundi, estu ondoric agueri... aipatuz (**atxikitzen** dut haren ortografia), baina literatura urria. Aurelia Arkotxa

Eta nola konstituzioaren arabera, apezpikuak gobernuak izendatzen baitzituen, Erromako aita sainduaz kondurik **atxiki** gabe, honek debekatu zuen zin horren egitea. Xipri Arbelbide

Trena bafaka zihoan, intzirika, astinka, bihurgunetik bihurgunera, fantasmak bezala ilargi gabeko gauari **atxikitzen** zitzaizkiola ziruditen Istriako mendien artean. Josu Zabaleta

Behinola buruan erabili nuen zu, iheslaria, haurraren bidez **atxikiko** zintudala. Eduardo Matauko

Diziplina **atxikitzeko** eginen zuten hori, Petratxarrirenean ez geundela oroitarazteko. Koldo Izagirre

Lagun asko izan dut, baina koadrilarena itogarria iruditu izan zait betidanik, herri bati **atxikita** egotearena bezalaxe... Ana Urkiza

Zertarako baina? Luzeegi joko zidan kutun hura nirekin zelan **atxiki** nuen azaltzea. Edorta Jimenez

Beste komuneko mutikoa hormari **atxikita** geratu zen; orduan, horma igo zuen eta katetik zintzilikatu eta ura aterarazi zuen eta horrela hanka egin zuen. Pello Lizarralde

Baina kasu honetan, bertze aunitzetan bezalaxe, alferrik saiatuko dira altxatua zuzentzen: ederki jakin izan baitu Filipek egoerari **atxikitzen**. Filipe Bidart

Gizakietan -animalia guztietatik espezializatuenak dira gizakiak-, ehun garrantzitsuak dira eskeletoa eta hari **atxikitako** muskuluak, bi arrazoirengatik: funtzionala bat eta estrukturala bestea. Irene Aldasoro

Dena dela, Hego Euskal Herrira mugatzen zen, gehienbat, euskara giputzaren nagusitasuna; Ipar Euskal Herrian Lapurdikoak **atxikitzen** zuen-eta lehentasuna. Koldo Zuazo

Anekdota lirateke agindu hauek, gogoari **atxikiko** ez balira. Joxan Elosegi

- **Atxiki** hire belarrietako bat nire ezpainetara, eta adituko duk hemen zer jazo zen. Edorta Jimenez

Zurezko jarlekuari **atxikitzen** diozue, haize-oldarrak zigortu oihalaren azpiko burdinei, eskura duzuen zernahiri. Xabier Montoia

Misterio horrek **atxikitzen** zintuen ate ondoan. Alberto Barandiaren

Denek ukitu zuten Chico, belarria **atxiki** zioten bizkarrera, gero aitari begiratu zioten ezer esan gabe. Koldo Biguri

XIII. mendeko tanka olerki bat aipatzen du, setsugetsuka aipatzen du (elurra, ilargia, lorea), gizakia naturari **atxikiz**. Ibon Uribarri

Baina ordenatu orduko, gibelerat egitea ezin zela, Jainkoaren zerbitzuko etengabe izan beharrez, haren laguntzarekin garbitasuna **atxikiz**. Piarres Aintziart

Agirreazkuenagak ohartutakoari **atxikiz**, deskribatu dituen jende tipoetan bera nola fijatzen den behatuz has gaitezke. Koldo Izagirre

Haur aulkia abiatu zelarik, heldulekuari bere eskutxoez **atxikita**, Leireren harria... Pablo Sastre

Are tinkoago **atxiki** dut Charlieren lepoa. Mirentxu Larrañaga

Croce, izan ere, erromantizismoari **atxikia** zen, eta Pirandello tematuta zegoen erromantizismotik geratzen zen guztia birrintzen. Josu Zabaleta

Horixe da guztion bekatua eta guztion kondena; eta utopia horretan dihardugu, ez alferrik, erlijioari, politikari, filosofiari, arteari **atxikiak**. Karlos Linazasoro

Nirekin izango dituzun harremanetan ondoko puntu hauei **atxikiko** zatzaizkio: Pello Salaburu

Betiko geratuko zaio irudi hori gogoan **atxikia**: emaztea, hil hurren, ohean etzanda, kantuan, kementsu eta adorez, erlojuari ordurik ez jotzeko esaka. Imanol Zurutuza

Ikusi, ezpere, nola armiarmak eraikitzen duen berea, bere nahirik nahitsuenen **atxikitzeko** eta haien sostengatzeko. Joan Mari Irigoien

Testuaren azkeneko orrialdeetan honela mintzo da Sokrates: "Uste dut Atenasko bakarrenetarikoa naizela, bakarra ez esateko, benetako arte politikoari **atxikia** eta nik dudala gaur praktikatzen". Askoren artean

Katedraletik irteten ari nintzela, gure bidaia egitera bakarrik etorri den mutil erakargarria sartu da: Ruben (atzo, elkarren aurkezpena egin genuenean, haren izena izan zen gogoan **atxiki** nuen bakanetako bat). Patxi Zubizarreta

Gazte, eder, irribarretsu, eskuetan afixak **atxikitzen** zituen jendeketa nabarraren artean nabarmen. Xabier Montoia

Beso bat atzeratu eta sokari oratu zion, Amyk buruari **atxikitzen** zion bitartean. Anton Garikano

Gorputza biribilean bildurik, belaunak elkarri **atxikita** eta eskuekin hortxe eutsiz, egundoko jauzia da argazkian egiten ikusten dioguna. Edorta Jimenez

"Filosofia moral osoa, bizi xehe bati **atxikitzen** zaio apainketa aberatsagoko bizi bati bezain ongi; gizon bakoitzak darama giza baldintzaren molde osoa". Patziku Perurena

Haren erroak sendo **atxikita** daude pelbisaren barrenean, iskionean, eta erekzioa gertatzen denean hortxe oinarritzen da. Luis Elberdin

Laguntzaileen neskame eta morroientzako lekuek, ukuiluek eta **atxikitako** eraikuntzek ezin dute handiagoak izan eta, sinesten ez baduzu ere, hamar pertsonen soldatak San Franciscoko etxean geneuzkan bigatik ordaintzen genuenaren berdina kostatzen zaizkigu. Ramon Etxezarreta

Hargatik ez nintzen sobera tristetu guregandik joatekoa zela jakin nuenean; alde askotatik, hobe nuen harengandik urrun bizi, oroitzapenean **atxiki**, osasun arrazoi egoista hutsengatik besterik ez bazen ere. Patxi Zubizarreta

Eutsi, eutsi, bihotz; Eta zuek, ene zainok, ez zaitezte bertan zahartu, baizik tinko nazazue **atxiki**. Juan Garzia

Artzain higatzen ginen garaietan, ardiak ardura auzoen funtsetan **atxikitzen** genituela sala dezaket egun, lasterka, jostatzen, idazten, irakurtzen edo ametsetan galtzen ginelako. Itxaro Borda

Hura gizon txikia zen, ahate baten modura zebilen eta ile beltz bakan batzuk zeuzkan, garezur gangatuari irmo **atxikiak**. Lopez de Arana

2 ***begia atxiki*** *(orobat* ***begiak*** *g.er.) ipar*

Guzientzat ikusezina gertatu zen zeinua bere ilobarentzat salbu, honek **begia atxikitzen** baitzion. Elena Touyarou

Guardak **begia atxiki** zien, kale izkinan haren bistatik desagertu ez zireno. Elena Touyarou

Eta herritik falta bada, urrunetik bederen **begia** beti **atxiki** behar herriko gora-behera guzieri. Herria

Joko hori errexa zen ikasteko, baina denbora pasagailu ona, noiztenka **begia atxikiz** artaldeari eta etor zitekeen pizti edo basabereari. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mariri **begia atxiki** zion, eta altzairuzko tresna erortzen entzun zuenean makurtu zela ikusi zuen. Elena Touyarou

Maiatzeko hauteskunde horieri ere beraz, **begia** beharko diotegu **atxiki**. Herria

Arranguratu direnek erran dute ernerik egonen direla **begia** untsa **atxikiz** zer egiten den eta zer ez. Herria

Frantziak indarño bat egin badu ere petrola karreun dabiltzan untzieri **begia** hurbilagotik **atxikitzeko**... Herria

3 *buru atxiki* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Waltary-ren kontra, luzaz **buru atxiki** dio artista huni. ETC-prentsa

4 *gogoan atxiki*

Denek **gogoan atxikiko** dugu haren omore ona, eta alegerantzia. Herria

Emaitza zenbaki bakarrekoa atera zaizuenok, berriz, **gogoan atxiki** besterik ez duzue. Patxi Zubizarreta

Arrats apalerako beste hitzordu bat iragarria zitzaidan eta ez nuen espantu egitekorik, eguna ahal bezainbat kasu eginez pasatzekoa nuela **gogoan atxikiz**. Itxaro Borda

Eta hori erraz izanen da demonstratzea, **gogoan atxikitzen** baldin badugu lehenik - berek onartzen dutena - hots, Jainkoaren erabaki soilari eta Haren nahi hutsari dagokiola, izatea duen edozein gauza, den hura bera izatea. Piarres Xarriton

Zeren eta lehenago, denboran, izenak zinez **gogoan atxikitzen** nituen. Menane Oxandabaratz

Idiota jakintsua, ikasia edo abila deitzen zaion giza jeneroa, beraz, idiota da, baina zenbait arlo zehatzetan, hala nola matematikan, musikan edo datuak **gogoan atxikitzen**, ohi ez bezalako dohain eta ezin sinetsizko abildadearen jabe da. Iñaki Segurola

Libratu horietarik bat beneditanoa zen, ez dakit zein komentukoa, eta pena dut izena ez **gogoan atxikirik**. Marzel Etxehandi

Eleka desordenatuan ari ginen, **gogoan atxikiz** biharamunean Hervé Malgornen igurikatzera beharrak ginela. Itxaro Borda

Oraingoz ez gaitezela horretaz ardura, baina **gogoan atxiki** dezagun funtsezko bulkoan Jainkoa Jainko baitan ezagutzen dela, izanik, hala ere, zerbait sortua. Joan Mari Lekuona

Guztiarekin ere, argitaletxerantz isurarazten zuen Balbok **gogoan atxikitakoaren** parte bat, kakari ezin eutsiz kaka egiten ari dena soro bat gorozten ari dela jakinean dagoenak bezala. Fernando Rey

-Herriaren alde beren bizia eman dutenak **gogoan atxiki** ditzagun, sakrifiziorik handiena eta ederrena egin dute Herriaren iraupena segurtatzeagatik. Itxaro Borda

Garaziren begiak, berriz, **gogoan atxiki** nituen irudietan baino aise berdeago; eta begirada, ezinago leuna. Txillardegi

Adinekoak hartzerakoan beti **gogoan atxikitzen** dut galdera hau: eta ni nolakoa izanen naiz beren adina ukanen dudalarik?. Berria - Kultura

5 *hitza atxiki*

Hala izan nadin betiere jaun eta jabe **hitza** atxikitzeko, edo hitza jateko. Jon Muñoz

Hitzemana nion eta **hitza** atxikitzen dut. Menane Oxandabaratz

Badakit nolakoa xiren ama: hitz eman eta gero ez duxu **hitza** atxikitzen... Itxaro Borda

Eta hara, ez nuela ene **hitza** atxiki! Daniel Landart

6 *irakasle atxiki*

Legeak dio unibertsitateak gehienez ere lau urterako kontratatuko dituela **irakasle atxikiak** Berria - Euskal Herria

Irakasle atxikia izateko baldintzak arautzen ditu. Berria - Euskal Herria

[...] kultura-saileko arduradunaren mahaian uzten zuen artikulua mezulari batek -ohi bezala, Duvrescuren **irakasle-atxikiak** -. Iban Zaldua

7 *kontu atxiki*

Burrasoen hautuaz **kontu atxikiko** dela, hots euskara ez dela sistematikoki ikastegi guzietan erakatsiko, burrasoek galdatzen dutelarik baizik. Herria

Lukuztar hautetsiak hitz-emaiten du jendearen ikusmoldeaz **kontu atxikiko** dutela departamenduan afera aitzinera pusatzeko tenorean. Herria

Hurbileko zerbitzua dute hor, ez da ordutegi ttikitzerik aipu, postak auzotarren mugimenduaz **kontu atxikitzen** du. Herria

8 *preso atxiki*

Egiazki den gutieneko hobenik gabe **preso atxikiak** izan badira eta hoin luzaz hoinbeste jende, nola behar dira orai saltsa hortarik ateratu? Herria

Lehena Mazedonian bahitu zuten eta Afganistanen **preso atxiki** bost hilabetez, Haida Zamar Damaskon giltzapetuta dago eta Kurnaz, Guantanamon dago. Berria - Mundua

Errege guzietarik eztiena eta amualtsuena - sobra ezti eta amultsua, ezen bortitzago izan balitz, bere eginbideak hobeki beteko zituen eta bere erresuma gaixtaginen errabiatik zainduko zuen; beraz errege hori, Luis hamaseigarrena, lehenik **preso atxiki** zuen eta gero hil. Xipri Arbelbide

Ez da harritzeko, Idolo berri horren historia hasiz geroz, baldin horrelako nagusiaren ordezkari bazeukan Richelieu batek bere burua, kardinale jaunak berak preso sartzea eta bera hil arte **preso atxikitzea** Saint-Cyrango abade kristau zintzoa, Jean Duvergier Haurannekoa gure herritarra. Piarres Xarriton

Alabaina ur jauzi haundi bat erortzen da delako putzu horretara eta zirimolaka aritzen azkarki, dena inguru eta inguru; orduan, bere bultan hartzen zaitu ur horrek eta **preso atxikitzen**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Preso atxikia zen, bahi, aleman zenbait hilen zuteneko. Marzel Etxehandi

Soldaduz inguraturik hirira ekarri eta bi egunez ganbara ustel eta hertsian **preso atxiki** ziren. Itxaro Borda

Uztailean gose grebari ekin zion Apalak, beste iheslariak aske utzi eta bera **preso atxiki** dutelako. Jokin Urain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abantaila atxiki (4); **atxiki ahal** (22); **atxiki ahal izan** (7); **atxiki bat** (6); **atxiki bat eman** (4); **atxiki behar** (81); **atxiki beharko** (15); **atxiki dezake** (4); **atxiki ditu** (18); **atxiki dituen** (5); **atxiki dituzte** (16); **atxiki du** (44); **atxiki duela** (8); **atxiki duen** (8); **atxiki duena** (4); **atxiki dugu** (4); **atxiki dut** (11); **atxiki dute** (44); **atxiki dute bururaino** (4); **atxiki egin** (7); **atxiki ezazu** (5); **atxiki gaitu** (5); **atxiki izan** (6); **atxiki luze bat** (6); **atxiki nahi** (72); **atxiki nahi izan** (12); **atxiki nahian** (5); **atxiki ninduen** (5); **atxiki ninduten** (4); **atxiki nintzaion** (4); **atxiki nuen** (20); **atxiki ondoan** (7); **atxiki sekretua** (4); **atxiki ttipian** (10); **atxiki ttipiko** (4); **atxiki zaio** (9); **atxiki zaion** (7); **atxiki zion** (8); **atxiki zituen** (17); **atxiki zituztela** (4); **atxiki zituzten** (14); **atxiki zitzaion** (14); **atxiki zitzaizkion** (7); **atxiki zuen** (52); **atxiki zuten** (29); **bat atxiki** (29); **batean atxiki** (4); **batek atxiki** (5); **bati atxiki** (6); **batzuk atxiki** (4); **bera atxiki** (4); **beretzat atxiki** (5); **bertan atxiki** (4); **besotik atxiki** (4); **beti atxiki** (9); **bizirik atxiki** (7); **bururaino atxiki** (4); **ederki atxiki** (8); **egunez atxiki** (4); **etxean atxiki** (9); **gabe atxiki** (7); **garbi atxiki** (4); **gehiago atxiki** (6); **gogoan atxiki** (24); **gogoan atxiki behar** (6); **gorderik atxiki** (5); **han atxiki** (4); **hartu eta atxiki** (4); **hitza atxiki** (7); **hori atxiki** (13); **kargua atxiki** (4); **lekua atxiki** (5); **nola atxiki** (8); **ona atxiki** (5); **ongi atxiki** (6); **oreka atxiki** (4); **orenez atxiki** (4); **preso atxiki** (13); **tinko atxiki** (5); **tokia atxiki** (4); **urtez atxiki** (7); **zergatik atxiki** (4); **zerratua atxiki** (8); **zerratua atxiki dute** (5)

atxikia da (14); **atxikia dago** (12); **atxikia dela** (10); **atxikia den** (11); **atxikia dut** (4); **atxikia dute** (4); **atxikia egon** (9); **atxikia izan** (18); **atxikia zaion** (5); **atxikia zegoen** (6); **atxikia zen** (29); **atxikia zuen** (7); **atxikia zuten** (6); **bat atxikia** (8); **bati atxikia** (13); **berdin atxikia** (4); **beti atxikia** (6); **biziki atxikia** (21); **errotik atxikia** (16); **euskarari atxikia** (6); **ezin atxikia** (4); **gogoan atxikia** (5); **guztiz atxikia** (4); **hain atxikia** (7); **herriari atxikia** (5); **horri atxikia** (4); **lurrari atxikia** (5); **ongi atxikia** (5); **oso atxikia** (4); **osoki atxikia** (4); **preso atxikia** (10); **zinez atxikia** (4); **zoin atxikia** (10); **zuri atxikia** (4)

atxikiak daude (4); **atxikiak dira** (12); **atxikiak direla** (9); **atxikiak diren** (16); **atxikiak direnak** (5); **atxikiak ditu** (4); **atxikiak izan** (13); **atxikiak ziren** (9); **atxikiak zituen** (5); **berari atxikiak** (6); **biziki atxikiak** (11); **denak atxikiak** (5); **elgarri atxikiak** (6); **elkarri atxikiak** (4); **euskarari atxikiak** (5); **ongi atxikiak** (4); **oso atxikiak** (4); **preso atxikiak** (5); **urrun atxikiak** (5); **zoin atxikiak** (4)

atxikiko dela (4); **atxikiko ditu** (4); **atxikiko ditugu** (5); **atxikiko dituzte** (9); **atxikiko dituztela** (4); **atxikiko du** (20); **atxikiko duela** (9); **atxikiko dugu** (15); **atxikiko dute** (13); **atxikiko dutela** (12); **atxikiko duten** (5); **bat atxikiko** (7); **bera atxikiko** (4); **gogoan atxikiko** (7); **luzaz atxikiko** (5)

atxikita bizi (6); **elkarri atxikita** (5)

---

atxiki[2] **1** *iz* esku pilotan, pilota eskuan atxikitzea, huts gisa jotzen dena.

Bi pareak elgarren bete eta dudaxka bat azken kintzean, heian urrungo pilota bat airetik ekartzean Barriolak **atxiki** egin ote zuen. Herria

2 *iz* zigarro eta kidekoez mintzatuz, zupatzea. ik **zupada**.

Axolagabekeriaz zigarroari azken **atxikia** eman, eta zigarrokina jaurti zuen; denbora pasa jardun zuen kaleko ikuskizunari begira. Patxi Zubizarreta

Mirandek gutunazalean sartu zuen orri zimurtua, eta **atxiki** luze bat eman zion zigarretari etxeko atariaren klandestinitatean. Javi Cillero

Aspergarri eta... - **atxiki** luzea eman zion purutxoari, eta kea astiro bota gero, larri itxura eginik. Migel Angel Mintegi

Lehenbizi, edontzia ur beroz betetzen zuen; gero, azukrea jarri ondoren, rona isurtzen zuen tantaz tanta limoi xerraren gainean, urarekin ez nahasteko moduan; eta su ematen zion, erretzen begiratzen zion, serio-serio, zigarroari **atxiki** geldoak egiten zizkiola, alkoholaren sugar altuak aurpegia berdatzen zion bitartean. Karlos Zabala

Banan-banan, eta gogoz kontra, zutitu egin dira gizaseme guztiak, eta nor bere kasa prestatu da: zigarretari azken **atxiki** bat egin, otoitz isil bat esan, edota begiak itxirik. Mirentxu Larrañaga

Orain, ordu ttikitan, hori guztia hartu dut Adela eta Esther turismo sexuala egiten ikusi ditudalako: Adela eta Karmelo belarretan etzanak zeuden eta tarteka bi zigarroren mutur goriek, **atxikia** ematerakoan, elkarrengandik oso hurbil zeudela erakusten zuten. Patxi Zubizarreta

Tiro hotsak ez zuen berez etenik sortu sekuentzia horretan, eta eskuetan zituzten zigarro piztu berriei **atxikia** emanda umezainek buruak itzuli bazituzten, gizasemea kolpetik isildu zelako izan omen zen gehienbat. Joxean Agirre

Mary Annek **atxiki** laburrak ematen zizkion zigarroari, eta ohi baino urduriago zirudien. Bernardo Atxaga

Willy Eisnerrek bere zigarretari **atxiki** bat eman eta kea baztertu zuen aurretik. Anton Garikano

3 *atxiki handi*

Kirol-elkarte hori, zezta puntari eta **atxiki handiari** emana, arras osagarri onean da. Herria

Elkartea osagarri onean dela, lauetan-hogoi bat pilotari barne ttipi eta handi, zezta-puntari eta **atxiki handiari** emanak. Herria

4 *atxiki txiki* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Xafla gogor trinko eta leuna, ageriko akatsik ez duena baina marrak, gune kolorgetuak, adabakiak eta adabegi **atxiki txiki** eta osasuntsuak dituena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hasiera batean, Freddie eta bere familia lehengusu batzuekin bizi ziren Felthamen (Middlesex) inguru hartan etxe **atxiki txiki** bat aurkitu zuten arte. ETC-entziklopedia

---

atxikiarazi, atxikiaraz, atxikiarazten du *ad* atxikitzera behartu.

Nahi bainuke inork ere oraka ez baleza gure hizkuntza, hizkuntzarekin zerikusirik ez duten eta hizkuntzak maite ez dituen ñabardura arrotzak nahi edo ez nahi hizkuntzari **atxikiaraziz**, ustez edo irozgarri egokiak direla, ez baitira batere hala. Pello Salaburu

Bortuko jendeak zirela egiazki agertzeko, horma artifizialez **atxikiarazi** biloak zut-zuta zituzten, haizeak buhatzean bezala karmuza buruaren gibel aldera bermatua. Itxaro Borda

Praktika ugariz zamatutako erlijio batek .46 hain zamatua ez den beste batek baino gehiago **atxikiarazten** du. Iñaki Iñurrieta

Izan ere, esan al diat zerk **"atxikiarazi"** ninduen Pitagorasi? Jon Muñoz

Bere ninia **atxikiarazten** zuen berinaren kontra. Ramuntxo Etxeberri

---

atxikidura 1 *iz* lotura.

Horrek esan nahi du ia-ia guztiz bazter ahal dezakegula, eremu batean gertaturiko hizkuntza bilakaeren estudioan, txokoarekiko atxikimenduaren indarra; edo berdin dena, indar bateratzailearen alderdi negatibotzat har dezakegu **atxikidura** horren indarra. Isabel Arrigain

Pneumatiko egokiak hautatu ezean, bapateko eurijasek ez zieten autoei errepideko asfaltoari behar bezalako **atxikidura** hartzen utzi, eta hor espezialistak ez direnek asko sufritu zuten. Berria - Kirola

Lau mozketa egiten dizkizute, abduktoreak ebakitzen dituzte, herniak osatu, pubisean ere zulaketaren bat ere badagoÉ Askori **atxikidurak** ere hautsi behar izaten dizkiete, zortez hori ez da nire kasua izan. Berria - Kirola

Sugeari masail hezurretarik heldu eta sugeak, bere **atxikidura** utzita, ihes egin zuen. Gotzon Garate

2 *atxikidura banda* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Atxikidura banda edo "Zonula adherens" zelulen arteko lotura egiten duen egitura bat da. ETC-entziklopedia

---

atxikiezin *iz* ezin atxikizkoa.

Artean eta literaturan bilatu nuen etxean mamu **atxikiezinen** antzean alderrai zebiltzan sentsazio eta sentimenduen mintzabidea. Joxan Elosegi

Ternik, Paolak eta Mariok egongelako sofan izaten zituzten solasaldietan, aldiz, zerbait zegoen misteriotsu edo **atxikiezin**, niregan nahasian lilura eta izua pizten zituena. Fernando Rey

Zuhaitz adarrek aurpegia ferekatzen zidaten; eta aldian behin hostoren bat harrapatzen nuen hortzetan, eta gogotik murtxikatzen nuen, zergatik ez dakizula halako zorion gainezkako eta **atxikiezin** batez, halako indar mozkor batez betetzen zaituzten bizipoz horietako batean. Josu Zabaleta

Eta bi orduz, alferrik hura salbatzen ahalegintzen nintzen bitartean, danbor **atxikiezin** hori belarria betetzen ari zitzaidan bere hots beti-berdin, eten, ulertezinezkoaz. Josu Zabaleta

Gizonaren indarra baino gehiagoko zorabioa sentitzen nuen haren ondoan, **Atxikiezina**, Ikusezina, Hila zeuretzeak ematen duen poz sakon, azaldu ezina. Josu Zabaleta

Baina uretan nahasten ikusiko ninduke; eta gure pozoiek izango lukete eraginik, gainera, haren gorputz **atxikiezinean**? Josu Zabaleta

---

atxikigailu *iz* euslekua, eustokia.

Ttipiren gaztiguak prestatzeko astia eman zidan: Ximurrak bere zangoa balaztan hondoratu baino lehenago kontu nion nire aldeko **atxikigailuari**. Aingeru Epaltza

---

atxikigarritasun *iz* atxikitzeko ahalmenari dagokion nolakotasuna.

Nolanahi ere, tiralariek beti jardun dute nondik edo handik zapatilen **atxikigarritasuna** hobetzen, kanpotik horretaz ohartu ez bagara ere. Berria - Kirola

Lehen, usadioz, ordainketa korronteen balantza orekatu behar izaten zen, eta orain berriz, kanpoko eta barruko zorraren **atxikigarritasunari** eutsi behar zitzaion. Koro Navarro

---

atxikimendu *(ETCn **11.191** agerraldi)* 1 *iz* maite edo gogoko den zerbaiti edo norbaiti buruzko lotura.

Gainera beste kausa batzuek **atxikimendurik** eza areagotzen badiete - hala nola, gobernuaren gogortasunak, lurren jabetzari buruzko legeek behin-behinekotasun espiritua ematea -, galdua da dena. Iñaki Iñurrieta

-Bizarrak nolabaiteko **atxikimendua** adierazten duelako Islamaren joera gogorrenarekin. Jon Arretxe

Hainbeste axola zizunari batere **atxikimendurik** ez diozula ohartzen zara. Josu Zabaleta

Izan ere hemen edozer argitaratzen da, eta laster sortzen dira jainko txikiak lehenengo nobelarekin, batez ere manifa honetarako edo hartarako **atxikimendua** adierazten badute. Unai Iturriaga

Emazte bat edo senar bat, seme bat edo alaba bat, guraso bat, anaia bat edo arreba bat, **atxikimendurik** handienak bakarrik. Oskar Arana

Egun hartan, Huarte Donibanekoaren pasarte bat eman zion itzulgai Enrikek, izaeraren eta alderdi organikoaren, hots, gogoaren eta haragiaren arteko **atxikimenduaz**.

Iñaki Iñurrieta

Bigarren Mundu Gerraren ostean haur haiek euren etxeetara itzuli zirenean, gurasoekiko **atxikimendu** eta maitasunik eza aitortzen dute. Jokin Urain

Nik beti egin dut maite nuen lana, eta iduritzen zaut zorionaren erroa hori dela, familiaren **atxikimenduarekin** batean. Menane Oxandabaratz

Errealismo sozialistarako **atxikimendu** gutxiegi, kosmopolitismo gehiegi eta kultura burgeserako arreta sobera sumatzen zioten Pasolini idazkariari. Josu Zabaleta

Atsegina hartzen baitu harengan, atsegin horrek ez baitio hutsik egiten, harenganako **atxikimendua** hazi zaio barruan. Oskar Arana

Nire ustez, gogamenaren "nagitasun" patologiko larria zen, pentsamenduz edo **atxikimenduz** hustua. Xabier Olarra

Zama izugarria gertatzen zitzaizkion amaginarreba eta aitaginarrebaren **atxikimendua** eta umea etorriko zelako itxaropena. Koro Navarro

-Zer gertatzen da? -galdegin zion Betti Zubiburu lehorreko zurginari, **atxikimendu** zerbait zion haurtzaroko adiskide bakarrari. Elena Touyarou

Orgasmoak **atxikimendua** sustatzen duten erantzun kimikoak eragiten ditu. Luis Elberdin

Aitak ez die gauzei batere **atxikimendurik**, eta batzuetan iruditzen zait gaua pasatzeko estalperik ez izatea ere ez litzaiokeela axolako. Ander Irizar

Irudi multzo bakoitzak bertute bat sinbolizatzen du: adorea, leialtasuna, **atxikimendua**, edota beharra. Javi Cillero

Gainera, Herria astekarian idazten du eta ez ogibidez, euskarari eta euskalduntasunari dien **atxikimenduaz** baizik. Janbattitt Dirassar

Egin ezazu indar erakustaldi bat, errepika ezazu zein ausarta zaren eta zenbat erailko zenituzkeen, eta ez duzu ergelen **atxikimendua** baizik jasoko, lotiena. Lander Garro

Hunkigarria da ikustea nola Klarak etengabe baieztatzen duen Frantziskorengandik hartu duen bizimoldeari -erabateko pobretasunari bereziki- gorde nahi dion **atxikimendua** eta leialtasuna. Askoren artean

Lehenago bertze batzuk ezagutu nituen, beti "talde" batekiko **atxikimendua** eskatzen zutenak. Aingeru Epaltza

Ez dugu uste orain arte azaldutakoak inolako kutsu ideologikorik duenik, hau da, pentsatzen dugu edonork onartzeko moduko ideiak direla horiek, norberaren nazio izaera edo **atxikimendua** bata zein bestea izanik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Fausto, manikeoen buruetariko bat, Cartagon izan zen sasoi hartan sektakideen **atxikimendua** sendotu nahian, baina Agustini ez zion zalantzarik bat ere argitu, alderantziz, inoiz baino nabariago jabetu zen haren ezjakin barkaezinaz. Imanol Unzurrunzaga

Ez **atxikimendurik** eman binako ikusmoldeei: begira zaitez kartsuki haien jarraitzetik. Itxaro Borda

Inondik ere ez zuen semeari errietarik eman nahi izan, horrek halako **atxikimendua** utziko baitzuen agerian. Patxi Zubizarreta

Aurreko asteko sentipen xelebre haiek irrigarriak egiten zaizkit gaur: ez diet **atxikimendurik**. Monika Etxebarria

Aldi berean, ordea, hitz eraikitzaileak nahiko zituen, noski: Ignazioarekiko maitasunez edo halako **atxikimenduz** idatziak, behintzat. Patxi Altuna

Udaletxe aurrean manifestaldiak antolatu eta jende ezagunak bere **atxikimendua** adierazi die manifestariei. Harkaitz Cano

Enpresari **atxikimendua** areagotzea: langileen motibazioa, partaidetza eta elkar-lana oso kontzeptu garrantzitsu bilakatu dira. Iñaki Heras

Sasoi horretakoa dut, baita ere, antzinako zeltar herri sendoaren egutegi zuhaitzekikoaren **atxikimendua**. Pello Zabala

Hango herritarren **atxikimendua**, bistan da, irabazia zuten horiek aspalditik. Andres Urrutia

Nire ustez, **atxikimendua** Estatuari, uste izatea bat datozela Estatua eta aberria, Estatuaren lurraldeak eta herri naturala, oso berria da, eta desastre hutsa. Markos Zapiain

Argudioak ondo zorroztu beharra zegoen besteak norberaren iritzira ekartzeko eta haien **atxikimendua** lortzeko. Jon Muñoz

Horra psikoanalisiak errealitatearen proba deitzen duena, doluaren garaiko lan geldi saihestezina, hildako gurasoarekiko gehiegizko **atxikimenduaz** hasi eta, bizitzaren alde, gero eta desatxikitze handiagoez apaltzen dena. Joxan Elosegi

2 (izenondoekin)

Egia erran ene egoeran, gizonen eta emazteen arteko **atxikimendu** itsua, amodioa deitzen zena, nekez uler nezakeen. Itxaro Borda

Pentsatzen nuen deserosoa zela edonorentzat leku arrotzean turista bakartiaren moduan ibiltzea, eta berak ere estimatu egiten zuela komentarioak norbaiti zuzendu ahal izatea; besterik gabe, inolako **atxikimendu** berezirik gabe. Bernardo Atxaga

Anatomia (eta gero kirurgia) izan dira Bennetten **atxikimendu** etengabeak, haren izatearen erdi-erdian kokatuak; eta berago da, bete-betean bera, bere lanean murgildurik dagoenean. Xabier Olarra

Erriberarekiko beti gelditu zait **atxikimendu** gaitza, gaur arte. Ana Urkiza

XXI. mendea "nazioen arteko **atxikimendu** librearena" izanen dela eta Espainiako estatu proiektuan "soilik euskal herritarrek nahi badute" hartuko dutela parte esan zuen Eusko Jaurlaritzako lehendakariak. Berria - Euskal Herria

Oraindanik, semeek amaren arreta gozoa ezagutuko dute, eta **atxikimendu** leialez jarraituko diete beti haren oinatz beneragarriei. Askoren artean

Gorroto suminduak zein **atxikimendu** sutsuak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aurrerago zioen elkarrenganako **atxikimendu** ezkutuko batek lotzen zituela bien arimak. Jose Morales

-Osasunak, zerorrek esan duzunez, ez nau balentria demasetara bultzatzen; eta karlismoarekiko nire **atxikimendu** zaharrak ere ez. Txillardegi

Eta hainbeste epelkeriaren ondoren bizarra uzten hasiak direnez noizbait, patxada hautsita uhertzeari gain hartu diotelarik, nireganako **atxikimendu** zoragarri hau erakusten dutenean, agirretarron harrokeriak hartu nau, aitortu beharra daukat. Koldo Izagirre

Arnasa hartu, hamarretik batera zenbatu eta ederki ikasiko zuen basandere honek zer zen izpirituarekiko **atxikimendu** oinarrizkoa. Lander Garro

Denok ditugu eginbehar biziak eta **atxikimendu** biziak, zeinek eskatzen baitute, eta arrazoiz eskatu ere, gure ahaleginik handiena... Irene Aldasoro

Sarritan du solasgai; eta betiere halako laudorioz eta halako **atxikimendu** benazkoaz, non zure gutuna hartu arte, uste izan baitut hark bien arteko adiskidantza gisa aipatzen zuena ez zela maitasuna baizik. Jon Muñoz

Izan ere, Perurenak bizi den lurrarekiko **atxikimendu** irmoa eta jakinmin kasik patologikoa izaten ditu bere obraren abiaburu. Patziku Perurena

Urtero irabazten genuen dominatxoa, eta **atxikimendu** maitekorra genion gure kirol-garaipen xume eta herrikoi hari. Juan Luis Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Larunbatean Iruñean eginen den manifestaziora joateko **atxikimendu** agiria plazaratu zuen atzo Foruen monumentuaren aurrean. Berria - Euskal Herria

"Autodeterminazio eskubidearen aldeko gazteek" **atxikimendu** kanpaina abiatu dute. Berria - Euskal Herria

Horretaz gain, **atxikimendu** zerrenda luzea jaso du Herritarren Zerrendak: orain arte 140 lagunena. Berria - Euskal Herria

4 ***atxikimenduzko kontratu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Bestalde, ez dira onartzen **atxikimenduzko kontratuetan** ez eta kontratuetako baldintza orokorretan egindako foro aldaketak (Prozedura Zibileko Legearen 54.2 artikulua). ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, ez dira onartzen **atxikimenduzko kontratuetan** ez eta kontratuetako baldintza orokorretan egindako foro-aldaketak ere (Prozedura Zibileko Legearen ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aldeko atxikimendu (5); **arteko atxikimendu** (4); **atxikimendu askeko** (6); **atxikimendu bat** (4); **atxikimendu berezi** (7); **atxikimendu berezi bat** (5); **atxikimendu berezia** (5); **atxikimendu berezirik** (4); **atxikimendu gehiago** (9); **atxikimendu handia** (17); **atxikimendu hori** (10); **atxikimendu kanpaina** (6); **atxikimendu librean** (6); **atxikimendu libreko** (20); **atxikimendu libreko federalismoa** (4); **atxikimendu libreko federalismoaren** (7); **atxikimendu libreko federalismorako** (4); **atxikimendu osoa** (4); **atxikimendu ugari** (13); **atxikimendu ugari jaso** (5); **bere atxikimendu** (4); **beren atxikimendu** (4); **gure atxikimendu** (6); **hainbat atxikimendu** (5); **hainbat atxikimendu jaso** (4)

alderako atxikimendua (4); **arteko atxikimendua** (10); **atxikimendua adierazi** (27); **atxikimendua adierazi zioten** (6); **atxikimendua adierazteko** (5); **atxikimendua adierazten** (4); **atxikimendua agertu** (18); **atxikimendua dela eta** (4); **atxikimendua eman** (15); **atxikimendua erakusten** (5); **atxikimendua erakutsi** (17); **atxikimendua erakutsiz** (4); **atxikimendua jaso** (12); **atxikimendua lortu** (6); **bere atxikimendua** (12); **beren atxikimendua** (17); **elgarren arteko atxikimendua** (4); **gure atxikimendua** (5); **herritarren atxikimendua** (8); **manifestazioari atxikimendua** (11); **txokoarekiko atxikimendua** (5)

atxikimenduak biltzen (4); **atxikimenduak jaso** (4)

atxikimentu ik **atxikimendu**.

---

atxikipen *(ETCn **1.421** agerraldi)* **1** *iz* atxikitzea.

Fakturak behar bezala egitekotan, Ogasunarentzako **atxikipena** jarri beharra zegoen, eta horretarako lizentzia fiskala atera behar. Iñaki Iñurrieta

Ikuspen haiek onartuak izan ziren: udalbatzak bilkura historikoa egin zuen, eta apaizak bere gain hartu zuen **atxikipenak** biltzeko lana. Monika Etxebarria

Indarrik gabe uzten da jatorrian **atxikipenak** dituzten finantza-aktiboei aplika dakiekeen zerga-araubidea, baita deuseztatzen ere berorien eta Altxorraren Ordaindukoen gardentasun eza. Aingeru Epaltza

Dena den, ohartzen da txakurrak berari dion **atxikipen** handiaz. Oskar Arana

Erlijio berria zabaltzeko, seme-alaben mendekotasun erabatekoa kendu behar da, haiek **atxikipen** txikiagoa baitute ezarritakoarekiko. Iñaki Iñurrieta

Atxikipen eta samurtasun sentimenduei beste arrazoi batzuk gehitzen zaizkie, hala nola segurtasun, erosotasun eta laguntasun arrazoiak, eta, horregatik guztiagatik, batzuentzat merezi du elkarrekin segitzea. Luis Elberdin

2 *atxikipen molekula* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Molekula hauek zelula mintzean daude eta hiru atal izaten dituzte: zitoeskeletoarekin elkarrekintzak izango dituen atal intrazelular bat, zelula mintzaren barruan dagoen atala eta beste **atxikipen molekula** batzuekin elkarrekintzak izango dituen atal estrazelular bat. ETC-entziklopedia

3 *atxikipen zelular* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Atxikipen zelularrak mikroskopio elektronikoz nabaritzen ez diren baina biokimikoki eta funtzionalki froga daitezkeen zelula-zelula edo zelula-matrize estrazelularraren arteko loturak dira. ETC-entziklopedia

---

atxikitasun *iz* atxikimendua.

Hasieran jendeek **atxikitasun** horren arrazoia haien ahalke soberazkoan kausitu uste izan zuten: baina sarri gorte jendetsu batez inguratuak, eta gorte horren goresmenak elkarren artean banaturik, eta gizonek lehia biziz erakusten zieten ardurengatik beren buruen balioaz argituak, haien kidegoa ez zen haatik bortitzagoa baizik egin. Jon Muñoz

Sofrikario hauek akitzen dituzte gorputz, odol eta izate guztia **atxikitasun** osoz bizi ohi dituztenena. Joan Mari Lekuona

Hona baldintzak: era bateko **atxikitasun** eza, pasibitatea, barneratzea eta batasunean biltzea. Joan Mari Lekuona

---

atxikitu ik **atxiki**.

---

atxikitzaile *iz* atxikitzen duen pertsona.

Bertze bazter batean, bortxatzen ari ziren neska gazte bat; hamar bat zenbatu nituen, arizalearen, **atxikitzaileen** eta txanda zain zeudenen artean. Aingeru Epaltza

Behar ez diren gauzen **atxikitzaile** zirea ala botatzaile? Menane Oxandabaratz

---

atxikitze **1** *iz* eustea, mantentzea. ik **atxikipen**.

Zerk daragio aire-masa hortxe ongi tolestatuta **atxikitzeari**: barnealdetik datorren hego punttu edo hego-farfaila hori da kulpantea. Pello Zabala

-Hitzaren **atxikitzea** ez da berenaz gauza ederra baizik, baina nik funts horretan galdatua eta zuk funts horretan hitzemana, denen buru ez bazenu egin ere, ez zen makurrik izanen! Janbattitt Dirassar

Anartean, herriko etxeak hondartzak hertsiak **atxikitzea** hautatu zuen. Berria - Euskal Herria

Eriaren usaiako bizi lekua **atxikitzea** inportanta dea? Herria

Gizabanakoak beti berekin behar duen lasaitasun goren hori **atxikitzea** nahigaberik saminenen erdian ere, horra zeri deitzen zion berak adimena! Jose Morales

A!, jauna! Garbi esanda, irizpideei gehiegi **atxikitzea** esaten zaio horri. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Presidentetzako kanpainan murgilduta zegoelarik, gertakari honek atsekabe handia sortu omen zion Putini eta albiste hau isilpean **atxikitzea** agindu zien hedabideei. Berria - Mundua

Aztertuko ditugun prozedurei ondo **atxikitzea**, taxuzko antolamendua moldatzea, euskarak dituen ahalmenei bide ematea. Iñaki Arranz

Hortaz, nazio-estatuaren ahultasuna mito moduan sortzeak funtzio bat betetzen du: mundu mailako merkatu askearen sorkuntza, prozesu geldiezina eta saihestezina delako ilusioa edo utopia **atxikitzea**. Iñaki Heras

Bertutearen lehen oinarria, nork bere izana **atxikitzea** da eta hau Arrazoiaren gidaritzapean. Piarres Xarriton

Baldintza horietan, jokoen eskaintza beti ahal bezainbat **atxikitzea** beharrezkoa da. Ramuntxo Etxeberri

Odaren kasuan askatasun pixka bat hartu dut edukiari buruz, baina testuak partitura eta guzti izan zuenez, neurriari hertsiki **atxikitzea** erabaki dut, gaztelaniazko eta italierazko itzultzaileek ez bezala. Xabier Olarra

Asko beren bidetik ateratzen dira urrutiegi jarraitzeagatik, eta gustamoldeoi oso sendo **atxikitzeagatik**. Joan Mari Lekuona

Baina, halaber, baldin adiskide gisara **atxikitzea** erdiets ahal bazeneza, hori bai bozkarioa! Jon Muñoz

Gogor estudiatu behar genuen, baina ez zen erraza gogoa liburuetan **atxikitzea**, izenorde erlatiboak bere antezedentearekin jeneroan eta numeroan izan behar zuen konkordantzian. Joseba Sarrionandia

2 *iz* leku batean edukitzea edo egonaraztea.

Zapatagin mozkortiak ez dakit, baina haren andre oloruetarrak ez zion uko eginen ni bere etxean **atxikitzeari**, sekula izan ez zuten semearen ordain. Aingeru Epaltza

Ustelkeria eta giza eskubideen urraketa leporatzen dizkiote Fujimoriri, eta estradizio prozesuak irauten duen bitartean atxilotuta **atxikitzea** galdegin zion Txileri. Berria - Mundua

Urtegiaren xedea ez da ura **atxikitzea**. Berria - Euskal Herria

3 *iz* itsastea, eranstea.

Gure proposamena hau da: ikurra **atxikitzea** osotasuna izendatzeko, eta kontzeptua eta hots irudia-ren ordez, adierazia eta adierazlea terminoak erabiltzea. Isabel Arrigain

Buruan dardaria **atxikitzea** zailagoa izan zen, Edurnek azpian apailatu bi burukoetan garondoa landatuagatik ere. Aingeru Epaltza

Aturri ondoan ondarkin pozoinatuen **atxikitzeak** iziarazten ditu ere bertako biztanleak. Herria

4 *atxikitze zentro* iz espetxera bidali gabe, atxilotuak preso mantentzeko zentroa.

Cimadeko Cristophe Piedrak, berriz, Sarkozy legearen ondorioz Hendaiako **Atxikitze Zentroan** etorkinek bizi duten egoera argitara eman zuen. Berria - Euskal Herria

Hendaiako **Atxikitze Zentroko** zortzi langile greban dira astelehenetik, zuzendaritza salatzeko. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atxikitze askeko (3); **atxikitze epea** (3); **atxikitze zentroa** (3); **atxikitze zentroetan** (3); **hendaiako atxikitze zentroan** (5)

atxikopalatu *izond* umiliatua.

Guztiz **atxikopalatua** eta hilkutxa hotz baten antzera uzten nauzu. Patxi Zubizarreta

atxilo **1** adlag *(ETCn **8.896** agerraldi)* preso.

XVIII. mendeko jauregi bikain hartan **atxilo** zegoen artean Max, Sirakusaren goialdean! Jon Muñoz

Preso abertzaleek epaileari men ez egiteak aztoratzen ditu su-eten eskale horiek, eta ez du ematen isolamenduetan dauden presoen egoerak edo komisaldegietan **atxilo** edukitzen dituztenen larriak asko arduratzen dituenik. Jokin Urain

Jonan Fernandezek agertu zuenez, hitzarmen hori bi zutabetan oinarritu beharko litzateke: lehenik eta behin, «gizaki guztiak, aske edo **atxilo** egon, eskubideen jabe direla aitortzea», eta bigarrenik, arlo horretan Eusko Legebiltzarrak eta Espainiako Kongresuak onartutako ekimenak eguneratu eta martxan jartzea. Berria - Euskal Herria

Gainera, beste hainbat urraketa egin zituzten: akusatuak salatutako gertaeretatik denbora batera atxilotu zituzten batzuk ez ziren gertaeren lekuan izan ere; leku sekretuetan izan zituzten **atxilo**. Berria - Mundua

Bigarren gatibualdia honetan datza: asko, sorkariekiko eta ondasun materialekiko maitasun ordenagabekotik jadanik askaturik, norberaganako maitasunaren **atxilo** gertatzen dira. Joan Mari Lekuona

Hark antzematen ez badio, Ingalaterrara igorri, edo berorren zuhurtziak ongien deritzon mugapean eman **atxilo**. Juan Garzia

Ingalaterrako Dorrean **atxilo** izan zutelarik ikusi zitian eta. Edorta Jimenez

Bidean, baso batera sartu zen Artur; garai batean, baso hartantxe egon zen **atxilo** Lancelot, ia bi urtez, Morgana sorginaren mende; sorgin hura hantxe bizi zen oraindik. Juan Kruz Igerabide

Irakurlea **atxilo** dago jadanik: dagoen lekuan dagoela, atomismoan dago. Xabier Amuriza

- Torturatzaile hori akabatzeko ematen dut **atxilo**, baina gero hemen ez diat lortzen... Koldo Izagirre

2 (izen gisa)

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak 2003an Herrera mendatean ekintza egin zuen ETAko taldearekin lotu ditu **atxilo** biak. Berria - Euskal Herria

Zougam, Mohammed Bekkali, eta Mohammed Chaoui **atxilo** marokoarren lagunek esan zutenez, gizonok sakelako telefonoak saltzen dituen denda batean egiten dute lan. Berria - Mundua

Beraren bizimodua, zeinaren monotoniaz ezin baita pentsatu izulaborririk gabe, bero-hotzen txandaketa gupidagabe bat da, hots, (beti maiztasun bereko) oszilazio mehartxeago zein zabaltxeagozko segida bat: gogorra **atxiloa**, kristau infernuaren duin, potentzialki bederen bizirik baitago. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Geroxeago, zozketa-ageriek ez zuten gehiago aipatu isunen zerrendarik, eta zorte gaiztoko zenbaki bakoitza zenbat **atxilo**-eguni zegokion ekartzen zuten besterik gabe. Juan Garzia

4 ***atxilo eraman***

Urdailean zeukan guztia edukita, goseak behinik behin ez astintzea espero nuen, **atxilo eramatea** gogo onez onartuko zuelakoan. Joxan Elosegi

AEBetako soldaduek bi matxino hil eta beste bat **atxilo eraman** zuten, Armadaren esanetan. Berria - Mundua

Edonor **atxilo eramaten** zuten laster asko, susmo hutsarekin sarri, eta egurra ematen zioten, nola gainera, eta urtetarako espetxeratu gero, legez kanpoko alderdi politiko batean zebilelako, besterik gabe. Juan Kruz Igerabide

Hilabete gutxi egin zuen Ertzaintzak **atxilo eraman** zuenerako, bost eguneko inkomunikazio aldian torturak nozitu ondoren, Alcalan sartu zuten atzera. Jokin Urain

Atxilo darama uso lumaurdina, mutu nahi bailuke haritz den. Berria - Kultura

5 ***atxilo hartu***

Handik gutxira atxilo **hartu** zutela nire laguntxoek. Inazio Mujika Iraola

Guztira 263 immigrante **hartu** zituen **atxilo** Poliziak. Berria - Mundua

Errudunak **atxilo hartzea** nahi dute Srebrenicako sarraskiko hilen senideek. Berria - Mundua

Zaindariek **atxilo hartu** zuten kriminala. Juan Garzia

Eskoziako lau diputatu **atxilo hartu** zituzten: SSP Eskoziako Alderdi Sozialistako eta Berdeetako bina diputatu. Berria - Mundua

Gerra hasi zenean bi apaiz faxista atxilo **hartu** zituen hura bera nauk ni. Inazio Mujika Iraola

Atxilo hartu dute arrantzontzi bat, Frantziara ihesi zihoala. Inazio Mujika Iraola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)

atxilo eraman (9); **atxilo har** (2); **atxilo hartu** (32); **atxilo hartuko** (2); **atxilo hartuta** (2); **atxilo hartutako** (4); **atxilo hartutakoen** (2); **atxilo hartzea** (2); **atxilo hartzeko** (4); **atxilo hartzeko agindu** (2); **atxilo izan** (2); **atxilo zaitzaten** (2); **edonor atxilo** (2)

atxiloaldi *iz* norbait atxilo dagoen denbora.

Van Bovenen esanetan, neurria eraginkorra izateko **atxiloaldi** guztia grabatu behar da; atxilotua ziegan, galdeketa gelan, pasilloan edo beste edozein lekutan dutenean. Berria - Euskal Herria

Garai hartan Grifik jazarpena eta kartzela ezagutu zituen, erregimen faxistaren hondakinen eskuetan zegoen italiar Poliziak eta magistraturak, inongo frogarik gabe, bi urteko **atxiloaldia** ezarri baitzion. Berria - Kultura

Fiskalak 20 eguneko etxeko **atxiloaldia** eta egun bakoitzeko sei euroko isuna eskatu zuen, aginteari ez obeditzeagatik. Berria - Harian

Beste auzitegi batek sei urtera jaitsi zuen **atxiloaldia**. Berria - Gaiak

Dela taberna zerbaiten ezkutaleku ote zen susmoagatik, dela tabernaria zipaio haietako baten andregaiarekin ibili zen errezeloagatik, begitan hartu zuten gure laguna, eta ez zioten arnasa hartzen ere utzi **atxiloaldiak** iraun zuen bitartean. Guardia zibilek bost egunetako **atxiloaldian** buruz ikasarazitako bertsioa errepikatu zuela bai polizia etxean egindako hiru deklaraziotan, bai epailearen aurrean eginikoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala, auzi-medikuak osasun azterketa egin dio, eta **atxiloaldietan** protokoloak agintzen duen bideo kamera bidezko grabaketak egiten ari direla dio oharrak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urteko atxiloaldia (3)

atxiloketa *(ETCn **1.421** agerraldi)* **1** *iz* atxilotzea.

Bestetik, **atxiloketak** salatzeko manifestazioa egin zuten atzo 1.500 lagun inguruk, Bilboko kaleetan zehar. Berria - Euskal Herria

Izan ere, defentsak "susmoetan" oinarritutako **atxiloketak** izan direla argudiatu zuen, eta Ertzaintzak ez duela froga bakar bat aurkeztu. Berria - Euskal Herria

Hango etxe batean gertatu ziren **atxiloketak**. Berria - Euskal Herria

Hogei pilula flipagarri omen zeuzkan gameluño baten **atxiloketari** capo arriskutsu batenaren tratamendua eman behar izan nion, hondarrean, lana burututzat jotzeko. Aingeru Epaltza

Hortaz, aitaren **atxiloketaz** eta jarri zioten isunaz hitz egin nion. Anjel Lertxundi

Desfokatu zait mundua, konpondu ezin dudan gaitza neure egin dudalako, nire **atxiloketak** zuengan duen eragina. Lander Garro

Berehala zabaldu zen haien herrietan eta Segurako buelta osoan **atxiloketaren** berria. Jon Maia

Traketsenak sagarrak eta legarrak nahastu zituen zuhurtziarik eta zentzurik gabe, eta Euskaldunon Egunkariarena Euskal Herrian gertatu berri diren beste **atxiloketen** upel berean sartu zuen. Bernardo Atxaga

-Egingo nuke Hagriden **atxiloketaz** zuk baino apurtxo bat gehiago dakidala, Weasley jauna -esan zion Lockhartek, bere buruaz oso pozik zegoen itxuraz. Iñaki Mendiguren

Ez naiz luzatuko gure **atxiloketaren** xehetasunekin. Bernardo Atxaga

Badaki Panizo okinari okerrik gertatuko ez zaiona, **atxiloketak** eragingo dion ezustekoaz eta horren ondorioez landa. Edorta Jimenez

Aitorren **atxiloketari** dagokionez, berriz, zer nahi duzue esatea? Letra handi-handiz atxilotu dute, eta baliteke egun batzuk barru letra txiki-txikiz aske uztea. Joxerra Garzia

Beste batzuek arazo politikoa zuten mintzagai: beharginen grebaren arrakasta, azken egunetako **atxiloketak**, presoen aldeko kanpainaren diru-bilketak... Pedro Alberdi

-Honako hau **atxiloketaren** arau-haustea da -esan zuen buruzagiak atsekabetuta-, eta ez ditut ondorioak nire gain hartzen. Agustin Otsoa

Egunkariko oharrak ez zuen ezer aipatzen haren ihesaz edo **atxiloketaz**, baina ziur zegoen Corto: berriro elkartuko zen, nonbait, noizbait, Rasputinekin. Iban Zaldua

Mezetako sermoian **atxiloketak** salatzeagatik apaizari isuna, eta isuna salatuz gero... Jokin Urain

-Hik badakin nolako garrantzia ematen diodan mandatari horren **atxiloketari** -esan zuen Ivan Ogareffek-. Karlos Zabala

Ez da oraingoan errezelorik izan, "**atxiloketa** epea amaitzear zela", pozez hartu dugu mutilaren aitormena. Iñigo Aranbarri

Inguruko guztiek jakin zuten-eta Jonen **atxiloketaren** berri. Jokin Muñoz

Baina barruan daukat oraindik harra; ekintza hura pikutara joan zen; dena gaizki atera zen, **atxiloketaren** bat ere izan zen, eta ni badaezpada herritik urruti joan nintzen, zer gerta ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Dena dela, nire lanak haren senarraren **atxiloketarekin** zuen zerikusia, ez hilketarekin, zuzenean behintzat. Migel Angel Mintegi

Esatariak Josebaren **atxiloketaren** berri eman du bigarren aldiz. Eider Rodriguez

Nola hartu ote dik nire **atxiloketaren** berria? -egin duzu zure artean galde-. Rafa Egiguren

Galdegilea **atxiloketan** parte hartu dutenetako bat izan da. Agurtzane Juanena

2 (izenondoekin)

Atxiloketa prebentiboak gerta daitezke laster. Berria - Euskal Herria

Medinaren kasuan, baina, "**atxiloketa** judiziala" kontzeptupean bidali zuen espetxera. Berria - Euskal Herria

Orain honek aztertu behar du ea **atxiloketa** zilegizkoa den edo bertan behera utzi behar duen. Berria - Euskal Herria

Angel Acebes Espainiako Barne ministroak atzo jakinarazi zuenez, polizia operazioak oraindik zabalik jarraitzen du, eta, beraz, **atxiloketa** berriak egon daitezke. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaur egungo **atxiloketa** kopuruari eusteko, behin-behineko eraikin bat baliatuko du Administrazioak. Berria - Euskal Herria

SREri igorritako ohar ofizialean, Garzonek **atxiloketa** agindua emana zuela zioen Barriosek. Berria - Euskal Herria

Horren berri izan zutenean helegite bat jarri zuten **atxiloketa** prozesuaren irregularkasuna salatzeko, eta helegite horren erantzuna iritsi da. Berria - Euskal Herria

Atxiloketa autoan "ETA talde terroristaren legez kanpoko finantzaketarekin ustezko harremana" aipatzen zen- Berria - Euskal Herria

Atxiloketa egunetan poliziek poltsa izenez ezagutzen den tortura egin ziotela salatu zuen Villanuevak; poltsa buruan jarri eta lepoan estututa itolarria eragin ziotela. Berria - Euskal Herria

Hain zuzen ere, **atxiloketa** modua gogor salatu eta Martinez askatzeko eskatzen zuen. Berria - Euskal Herria

Balzak **atxiloketa** aldia grabatzeko sistema azalduko dio gaur Gil Roblesi. Berria - Euskal Herria

Polizia operazio hartan bertze **atxiloketa** andana bat gertatu zen Ipar Euskal Herrian. Berria - Euskal Herria

Atxiloketa esparru batean egona zen Errusian, eta denboraldi bat emana zen Alemaniako esparruetan Estatu Batuetarako bisa lortu aurretik. Koro Navarro

Atxiloketa egun berean, Miep Gies eta Bep Voskuijl, Frank familiares babesleek, Anneren testuak bildu eta gorde zituzten. Josu Zabaleta

Ihes egizue **atxiloketa** zentroetatik... Paddy Rekalde

2 *atxiloketa ilegal*

Gainera, "**atxiloketa ilegala** bi aldiz» eman dela esan zuen, espetxeak bi data proposatu zituelako, urriaren 25a eta azaroaren 21a. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

atxiloketa agindu (10); **atxiloketa agindua** (9); **atxiloketa aldian** (6); **atxiloketa asko** (5); **atxiloketa baldintzak** (5); **atxiloketa egin** (8); **atxiloketa ezarri** (10); **atxiloketa gehiago** (9); **atxiloketa gehienak** (5); **atxiloketa gune** (13); **atxiloketa gunea** (6); **atxiloketa guztiak** (5); **atxiloketa izan** (8); **atxiloketa salatu** (18); **atxiloketa salatzeko** (16); **atxiloketa unean** (6); **atzoko atxiloketa** (5); **azken atxiloketa** (5); **barruko atxiloketa** (15); **barruko atxiloketa ezarri** (9); **baten atxiloketa** (5); **bi atxiloketa** (6); **bigarren atxiloketa** (8); **etxe barruko atxiloketa** (15); **haren atxiloketa** (5); **kanpoko atxiloketa** (5); **legez kanpoko atxiloketa** (5); **lehen atxiloketa** (5)

atxiloketak bilbon (5); **atxiloketak egin** (19); **atxiloketak egiteko** (5); **atxiloketak eta tortura** (6); **atxiloketak eta torturak** (6); **atxiloketak gertatu** (5); **atxiloketak izan** (8); **atxiloketak legez** (5); **atxiloketak salatzeko** (29); **azken atxiloketak** (14); **azken atxiloketak salatzeko** (5); **egin zituzten atxiloketak** (7); **egindako atxiloketak** (10); **legez kanpoko atxiloketak** (5)

atxiloketan parte hartu (5)

atxiloketaren berri (12); **atxiloketaren unean** (7)

---

atxiloketaldi *iz* norbait atxilo dagoen denbora. ik **atxiloaldi**.

Atxilotu guztiak inkomunikatuta egon ziren **atxiloketaldian**, eta Alk hori salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Hiru eguneko **atxiloketaldi** baten amaieran, aske utzi zuten Unione Naziunale hautetsi abertzale taldeko eleduna. Berria - Mundua

---

atxilotu, atxilo(tu), atxilotzen *(ETCn **92.775** agerraldi)* **1** du *ad* atxilo hartu.

Denbora: existitzen ez den abstrakzioa eta jendakia, jendaki denetik, neurtzen, zenbatzen eta **atxilotzen** saiatu dena. Sonia Gonzalez

Polizia bera ere, Ertzaintzakoa izan edo izan beste segurtasun zerbitzuren batekoa, euskaraz irakurtzeko gai da, edo hala ematen du bederen, norbait **atxilotu** eta berehala itzultzen dituztelako, ez dakit ongi ordea zein hizkuntzatatik zeintara, han eskuratutako dokumentuak. Pello Salaburu

Carlos **atxilotu** egin zutela bertako kanposantuan hilarri bat mailukazoka txikitu nahian aritzeagatik. Bernardo Atxaga

Telefonoak jo zuen halako batean, orain eseki berri duen telefono horrek berak, eta gizon ahots ezezagun batek jakinarazi zion, poliziaren izenean, bere semea **atxilotuta** zegoela. Jokin Muñoz

Arantxaren aitak gudariekin batera egin baitzuen gerra, Jagi-jagi batailoian; frontean **atxilotua**, hiltzera kondenatua, heriotza-zigorra kendu zioten azkenik... kartzelaldi luze baten truke, hori bai, itzalean zortzi urte egin behar izan baitzituen. Joan Mari Irigoien

Zaurituak, **atxilotuak**, deportatuak eta orotariko egurtuak eta kaltetuak. Edorta Jimenez

Atxilotu zituztelarik ere izan zuen zer ahantzi. Xabier Montoia

Bidean **atxilotuko** ote ninduten, edota betiko garaitu, leizezulo baten hondoenean agertuko ote nintzen? Patxi Zubizarreta

Epaileak bungalowen patioaren aurrean Dorothy eta biok **atxilotu** gintuzten bi poliziei deitu eta haiek gertatutakoa kontatu zuten: kotxe lapurtua Vine Streeten aurkitu zutela eta esperoan egon zirela Dorothy eta biok etxetik atera eta kotxerantz joan ginen arte. Fernando Rey

Dragoi gorri horretan Will Graham detektibearen historia kontatzen du, Hannibal **atxilotu** zuen detektibearena alegia. Antton Olano

- Azkenengoz **atxilotu** ninduteneanez ninduan kapaz beste tortura saio bat agoantatzeko, benetan esaten diat... Unai Iturriaga

-Atxilotuko dut? -gihar-zakuak bere nagusiari, itxaropenez puztua. Aingeru Epaltza

Lau **atxiloturik**, beste lau sasian, eta denak, hala espero dinat behintzat, norbaiten etxean barrabaskerian -Baby Suggsek bekainak igurtzi zituen-. Anton Garikano

Pajetta, artean institutura galtza motzetan joaten zen mutiko bat besterik ez zelarik, **atxilotu** egin zuten eskolako bankuen artean faxismoaren kontrako orriak banatzeagatik. Fernando Rey

Alejandro edozein aitzakiarekin **atxilotuko** zuela mehatxu ere egin zioan Noeliari. Jon Muñoz

Ez duk batere erraza izango **atxilotzetik** libratzen, izan ere, zerbait egiten hasita, a zer lardaskeria egin duzuen! - hasi zitzaidan. Joxean Agirre

Zazpi urte sasian eman eta gero, **atxilotua** izan zen. Filipe Bidart

Erreportari batzuk **atxilotuak** izan zitunan eta gero eremutik bidaliak, edota heriotzara zigortuak... Lutxo Egia

Baita susmatzen ere Edurneren desagertzeaz, baina gure susmo haiek baieztatzen edo ezeztatzen hasi aurretik gu geu **atxilotu** gintuzten: Gaizka, Hankapalo, Aloña eta laurok. Xabier Mendiguren Elizegi

Zer zartakoa Normandiako lehorreratzearen biharamunean, doi-doia, **atxilotu** zituzten, gerla irabazia zelako usteak bihotzak denei argituak zizkielarik. Eneko Bidegain

Psikiatra bakar bat ere ez zegoen, egun batez guztiak **atxilotu** baitzituzten jendarmeek. Joxan Elosegi

Kolpistek euren egoitzak indarrez hartu eta kazetari asko **atxilotu** bazituzten ere, beste boluntario batzuek, ordea, jarraitu zuten kalean informatzen, gutunaren berri ematen. Txema Ramirez de la Piscina

Herenegun **atxilotu** zuten ustezko terrorista gela erdian dago, aulki deseroso batean eserita, eskuak eta hankak lotuta. Iban Zaldua

Epaitegiko funtzionario bi ziren, ni **atxilotzeko** agindu batez hornituak. Iban Zaldua

Gipuzkoako gizon entzutetsuenetatik hamasei bai, gutxienez, **atxiloturik**. Hasier Etxeberria

Ardo-hatsa zuen, eta hortik atera nuen **atxilotu** berria zela; bailarako azentua zuen, baina ez zuen ematen baserritarra zenik. Juan Garzia

Atzo ene lau adiskide **atxilotu** zituen eta, Jainkoaren graziarekin, zuek eguraldi gorriagoa izango duzue... Patxi Zubizarreta

Atentatu haietako asko suizidatzat jo daitezke, egileek ondo asko baitzekiten berehala **atxilotu** eta hil egingo zituztela. Jose Morales

Eta aukeraz baliatu zen doktore jaunaren pasadizo bat errepikatzeko, haren esanetan 1961eko Gabon gauean bi morroi **atxilotu** zituzten kalean mozkorturik eta gora Neru esanez harrapatu zituztelako. Bego Montorio

Pertsona bat baino gehiago **atxilotu** eta utzi zuten libre. Koro Navarro

Baina ez ahaztu **atxiloturik** zaudela. Agustin Otsoa

Ertzaintzaren Gernikako komisariaren aurrean zegoen, beraz, eta faxistek **atxilotu** zuten lekutik gertu. Juan Luis Zabala

Guztiek dute lasaitasuna ematen dien datu bat: gaizkileetatik %5a baino ez da **atxilotua** izango. Pako Aristi

Orduan **atxilotu** zuten, eta handik gutxira fusilatu ere bai. Javi Cillero

Oraindik gogoan du nola ospatu zuen, lanetik etxera itzulitakoan, alemaniarrek Janovski **atxilotu** eta desjabetu izana. Iban Zaldua

Baina anaia aurkitutakoan, anaia **atxiloturik** bere aurrean ikusitakoan ikasi zuen aberria bat zela, eta odola bestea. Felipe Juaristi

Eta hara zer erantzun zidaten: honelako une batzuetan alkatea **atxilotuz** gero, arazoak berehala hartuko zuela izaera politikoa. Koldo Biguri

Oso zibilizatua da dena, ez uste: hogeita hamar kide **atxilotzen** dituzte aldioro eta manifestariek hautatzen dute nortzuk izango diren **atxilotuak**. Harkaitz Cano

Dreyfus izeneko ofizial frantses judu bat **atxilotu**, degradatu eta hil arte erbesteratzearekin zigortu zuten, espioitza kontu bat zela eta. Karlos Zabala

Sakristaua **atxilotzen** edo hartzen dute bortizki; nahi diote aitorrarazi urreria hori non atxikitzen zuen gorderik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bizirik **atxilotu** zuen Agag, amalektarren erregea; herritar guztiak, aldiz, birrindu egin zituen, ezpataz hilez. Elizen arteko biblia

2 (era burutua izenondo gisa)

Jende **atxilotua**, jende egurtua, batetik bestera alderrai. Harkaitz Cano

3 (era burutua izen gisa)

Amonaren esanetan, aitak zauritua zangan utzi izan balu, frantsesek bertan garbituko zuten, **atxilotu** elbarriek eta gaixoek endredoa besterik ez baitute ekartzen; halaber, kontu segurua zen zaurituari laguntzen gelditzen zena ere atzeratu egingo zela, eta frantsesek biak harrapatuko zituztela. Anjel Lertxundi

Atxilotuen artean Goldsteinen etxera isilpeko txostenak eramaten zituzten mezularietako batzuk ere harrapatu genituen. Alberto Ladron Arana

[...] Poliziaren karga bat edo beste, **atxilotu** batzuk, ez beste garai batean bezainbeste, hala ere, ez kargak eta ez **atxilotuak**, eta patronala eseri da sindikatuekin negoziatzera [...] Jon Alonso

Presozainen ontasuna da, beren askatasuna arriskatuz, emazte eta amei zuzendutako **atxilotuen** gutunak pasarazten dituztenean. Felipe Juaristi

Nik ekin eta ekin egin nuen, poliziak **atxilotuekin** bezala, baina argirik piztu gabe, polizien foko itsugarria Dabiden begietara zuzendu gabe. Patxi Zubizarreta

Eskuak jaso zituen, **atxilotu** baten antzera. Fernando Morillo

Baina lehendik ere nahikoa hedatua zegoen komisaldegian bere maritxu ospea, eta laguntzaileak begira zituela oharturik, hortxe eman zion lehen zaflada **atxilotuari**, gidoiak agintzen zuen bezala. Harkaitz Cano

Atxilotuetako batekin hitz egiteko modua izango dudala uste diat. Iban Zaldua

Atxilotua desmoralizatu nahi izan du txukelak. Koldo Izagirre

19 **atxilotuetatik** bederatzi aske irten dira dagoeneko, eta zazpi espetxeratu dituzte. Berria - Euskal Herria

Frantziako polizia iturrien arabera, **atxilotuak** lo zeuden eta bortxarik erabili gabe egin zituzten atxiloketa guztiak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

arratsaldean atxilotu (12); **atxilotu bat** (14); **atxilotu batek** (11); **atxilotu ditu** (141); **atxilotu ditu poliziak** (17); **atxilotu dituzte** (331); **atxilotu dituzte bilbon** (16); **atxilotu dituzten** (16); **atxilotu du** (73); **atxilotu dute** (303); **atxilotu dute bilbon** (34); **atxilotu dute donostian** (12); **atxilotu dute gasteizen** (16); **atxilotu egin** (186); **atxilotu egin zituen** (12); **atxilotu egin zituzten** (20); **atxilotu egin zuen** (25); **atxilotu egin zuten** (93); **atxilotu egingo** (16); **atxilotu eta espetxeratu** (18); **atxilotu eta torturatu** (17); **atxilotu guztiak** (12); **atxilotu izana** (11); **atxilotu ninduten** (15); **atxilotu ondoren** (41); **atxilotu ostean** (12); **atxilotu zituen** (381); **atxilotu zituen atzo** (84); **atxilotu zituen ertzaintzak** (17); **atxilotu zituen espainiako** (14); **atxilotu zituen guardia** (14); **atxilotu zituen herenegun** (18); **atxilotu zituen poliziak** (20); **atxilotu zituzten** (504); **atxilotu zituzten atzo** (50); **atxilotu zituzten herenegun** (11); **atxilotu zituztenean** (19); **atxilotu zuen** (533); **atxilotu zuen atzo** (98); **atxilotu zuen ertzaintzak** (58); **atxilotu zuen espainiako** (14); **atxilotu zuen frantziako** (15); **atxilotu zuen guardia** (29); **atxilotu zuen herenegun** (63); **atxilotu zuen poliziak** (14); **atxilotu zuten** (876); **atxilotu zuten atzo** (45); **atxilotu zuten herenegun** (35); **atxilotu zutenean** (67); **atxilotu zutenetik** (23); **bat atxilotu** (633); **batera atxilotu** (18); **berehala atxilotu** (17); **berehala atxilotu zuten** (11); **bertan atxilotu** (27); **bi atxilotu** (19); **bi gazte atxilotu** (14); **bi gizon atxilotu** (64); **bi gizonezko atxilotu** (19); **bi kide atxilotu** (13); **bi lagun atxilotu** (37); **bi pertsona atxilotu** (17); **bilbon atxilotu** (12); **bost lagun atxilotu** (16); **bost pertsona atxilotu** (13); **emakume bat atxilotu** (15); **ertzaintzak atxilotu** (22); **etxean atxilotu** (20); **ez zuten atxilotu** (12); **gazte bat atxilotu** (57); **gaztea atxilotu** (23); **gehiago atxilotu** (14); **gizon bat atxilotu** (262); **gizona atxilotu** (44); **gizona atxilotu zuen** (19); **gizona atxilotu zuten** (15); **gizonezko bat atxilotu** (125); **gizonezkoa atxilotu** (54); **gizonezkoa atxilotu zuen** (35); **gizonezkoa atxilotu zuten** (12); **guardia zibilak atxilotu** (16); **hainbat lagun atxilotu** (12); **hamar lagun atxilotu** (17); **herenegun atxilotu** (14); **herrian atxilotu** (15); **hiru gazte atxilotu** (19); **hiru gizon atxilotu** (22); **hiru lagun atxilotu** (24); **hiru pertsona atxilotu** (12); **inor atxilotu** (11); **lau lagun atxilotu** (17); **ondoren atxilotu** (11); **operazioan atxilotu** (34); **ostiralean atxilotu** (14); **pertsona bat atxilotu** (15); **polizia operazioan atxilotu** (11); **poliziak atxilotu** (41); **zergatik atxilotu** (15); **zortzi lagun atxilotu** (11); **zortzi pertsona atxilotu** (11)

atxilotua izan (30)

atxilotuak izan (38)

atxilotuen artean (25); **atxilotuen eskubideak** (11)

atxilotuta dauden (12); **atxilotuta egon** (15); **atxilotuta eraman** (21)

atxilotutako bi (16); **atxilotutako hiru** (19); **atzo atxilotutako** (11); **bilbon atxilotutako** (15); **guardia zibilak atxilotutako** (12); **operazioan atxilotutako** (24); **poliziak atxilotutako** (18)

---

atxilotzaile *iz* atxilotzxen duen pertsona.

Kanpoko epaile eta **atxilotzaile** horien etorrera, badirudi, Karitatearen Ordenaren barnean sortutako salaketaren batetik abiatu izan daitekeela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta **atxilotzaileen** besteko informazioa. Iñigo Aranbarri

Eta deliberamendu hartu dut mundura itzuli eta **atxilotzaile** eta iruzurgile arima-gabeen artean ibiltzeko, arima izatearren guztiek egiten baitidate harrera; eta hala horiek guztiek eta jite horretako gainerako ofizioetakoek Garibairen arima dute. Anjel Lertxundi

---

atxilotze *iz* atxilo hartzea.

Hiru hilabetera, **atxilotze** agindua eman zuen auzitegi berberak eta 40 egunez Alcala Mecon eduki ondoren libre utzi zuten fidantza ordainduta. Jokin Urain

Parlamat taldeko Venezuelako ordezkari Giovanni Bonicik Parmako auzitegian azaldu da, bere aurkako **atxilotze** -agindua ezagutu eta gero. Berria - Ekonomia

Atxilotze -egun hartan bertan montatu zen bilkuran Pierra Andderen lehen auzoak erran zuen: [...]. Itxaro Borda

García Lorcak Antoñito el Camborioren **atxilotze** eta heriotzari eskainitako poemak oso ondo ezagutzen zituen bezala, ezagutuko zuen Agirreren testu hori ere Lauaxetak. Xabier Mendiguren Elizegi

2001etik aurrera Woomeran (Australia) gobernuak kontzentrazio-esparruen antzerako paperik gabeko etorkinentzako **atxilotze** -zentro bat izan zuen martxan. Berria - Gaiak

Mila immigrante inguru daude uharteko **atxilotze** guneetan. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **atxilotze agindu** (9); **atxilotze agindua eman** (4); **atxilotze agindua zabaldu** (3); **atxilotze agindua zabaldua** (3); **atxilotze agindua zegoela** (3); **atxilotze aginduak** (6); **atxilotze aldia** (3); **atxilotze epea** (5); **atxilotze unean** (3); **atxilotze zentro** (7); **atxilotze zentroetan** (3); **aurkako atxilotze agindua** (7); **barruko atxilotze agindua** (3); **bere aurkako atxilotze** (3); **bilatze eta atxilotze** (7); **etxe barruko atxilotze** (3); **hendaiako atxilotze** (3); **kontrako atxilotze agindua** (4); **kontrako nazioarteko atxilotze** (3); **nazioarteko atxilotze agindua** (13)
>
> **atxilotzea edo hiltzea** (3); **atxilotzea lortu zuen** (5); **atxilotzea lortzen** (3); **ez atxilotzea** (3); **kideak atxilotzea** (5)

---

atximur 1 *iz* imurtxia, zimikoa.

Atximur , ausiki egiten zien, ukabilez eta zangoz jotzen zituen, lauhazka gorrian zeraman diligentzia, iduri luke ez zuela jarraitu ahal izanen eta tximista bezala aitzinatuko zitzaiola. Koldo Izagirre

Ai Jimmy, ez duzu parerik! -zutik jarri eta **atximur** egin zion besoko giharrean-. Lopez de Arana

Lelo aurpegi hori segituan aldatzen ez baduzu, **atximur** egingo dizut ipurtaldean. Patxi Iturritegi

Gero **atximur** leun bat egin dio, mendeku apur bat hartzearren, eta kalera bultzatu du, elurrez erabat hustu beharrean ari den zeru hitsezko maindire azpira, zakur abandonatuen antzera ulu egiten duen haizera. Itziar Otegi

Atximur txiki bat egitekotan. Anjel Lertxundi

Ez zen, ordea, itsas ahaltsuaren neurririk gabeko basakeria hura Noraren txundimenaren kausa ez bakarra ez lehena, gero eta **atximur** gehiago eragiten baitzizkioten bere bihotz ederberan Andreasen gorputzak, sasoiak eta haren izaera osoari zerion segurtasunak. Anjel Lertxundi

Animozko **atximur** bat ferekatu zion matrailean, irribarre seduktore batekin hanka egin baino lehen. Unai Iturriaga

2 *atximur egin*

Hortxe utziko haut, gezurretan jarraituz gero, eta Muchek **atximur egingo** din. Karlos Zabala

Emakumeak ere zakiltxoan eta pottottan **atximur egiten** die; ondoren, atzetik jartzen zaio Gizonari eta, azazkalez sorbalda urratzen dion bitartean, pepino moduko zer edo zer sartzen dio ipurditik. Xabier Mendiguren Elizegi

-Atximur egin zion mahukan gizonari, adarra joaz. Koro Navarro

Ai Jimmy, ez duzu parerik! -zutik jarri eta **atximur egin** zion besoko giharrean. Lopez de Arana

Aulki batean erdi kolokan nengoen, bakarrik edateaz etsita, eta orduan, zizt, **atximur egin** zidaten besoan, hain zuzen ere, bakearen sinboloa neukan azal puskan. Javi Cillero

-Perbertitu halakoa! Lelo aurpegi hori segituan aldatzen ez baduzu, **atximur egingo** dizut ipurtaldean. Patxi Iturritegi

-Gero gerokoak! -esan du besteak, titimuturretan **atximur eginez** . Juan Martin Elexpuru

"Ez esan itsuskeriarik, Pantxo!", esan zion Martinek besoan **atximur eginez** . Bernardo Atxaga

Bularralde gantzatsuan **atximur egin** ziolarik, esan zuen. Patxi Zubizarreta

Modu hartan Autodidaktaren begietara estalirik geratzen zela, eskua ibili zen pixka batean eta gero bere inguruan hasi zen haztamuka eta, ondoren, ilehori lodiaren besoa aurkitu zuenean, **atximur egin** zion bortizki. Monika Etxebarria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **atximur egin zion** (4); **atximur egiten zion** (3)

---

atximurka 1 *adlag* atximur eginez.

Kontatu egin genituen; kumeak bihurritu eta iraulkatu egiten ziren, atzera eta aurrera ipurdiaren eta sabelaren gainean biraka, batak bestea zokoratuz, elkarri **atximurka** , amaren inguruan elkarri bultzaka. Koro Navarro

Entzuten nituen, ez erditaraino ez eta gutxiagorik ere, ez aurrez aurre nire kontra zetozela; baina atzetik xuxu-muxuka, ihesi eta disimuluan **atximurka** bezala, itzul nendin. Imanol Unzurrunzaga

Luzaroan eta krudelki jardun zitzaion, zimikoka eta **atximurka** , belaun atzeetan. Mirentxu Larrañaga

Haren eskua klitorisera zuzendu zen eta **atximurka** hasi zitzaion, gero eta azkarrago. Juan Martin Elexpuru

Berak esan zuenez, harremanetan zeudela neskatxa **atximurka** hasi zitzaion eta, geldiarazteko, nahi ezta, ito egin zuen. Gotzon Garate

Muche **atximurka** hasi zitzaiolarik, negarrari eman eta handik alde egin nahi zuela esan zion. Karlos Zabala

Beste batzuetan azalean **atximurka** hasten da, opiltxoak egiteko orearekin lanean. Alberto Barandiaren

Dolmancé, zapintzeari utzi gabe: Munduko gauzarik naturalenera: ileak aterako dizkiot eta izterrak **atximurka** ubelduko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Entzuten nituen, ez erditaraino ez eta gutxiagorik ere, ez aurrez aurre nire kontra zetozela; baina atzetik xuxu-muxuka, ihesi eta disimuluan **atximurka** bezala, itzul nendin. Imanol Unzurrunzaga

Eta biolin-soinuak lagundurik, gizonezkoak emakumezkoekin dantza alaian hasten ziren, mihi eta esku dantza lizunean segidan, sabel dantzan gero, eta elkarren larruei **atximurka** amaitzen zuten, mamuak balira bezala. Felipe Juaristi

2 *iz* atximurra.

Bizitako denbora bizitzari kendutako **atximurka** baita, eta egunean egunean gero eta denbora gutxiago geratzen zaigu, guztiz amaitu arte; bizitza honetako denbora, izan ere, heriotzarantz lasterketa besterik ez da. Imanol Unzurrunzaga

3 *atximurka egin*

Besteengana itzuli, haurra ikusi zuen, masailean **atximurka egin** zion. Pablo Sastre

Besteekin joango nauk -begi-keinua zion Juleni, eta irtetean **atximurka** ipurdian-. Fernando Morillo

-Eta puntu horretan **egin** dit **atximurka** emakumeak-. Iban Zaldua

-Hi haiz, hi, tripontzia! -esan dio Aitorrek, sabelean **atximurka eginez** . Jokin Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
atximurka egin zidan (3); **atximurka hasi** (3)

---

atximurkada *iz* atximurka.

Urdailean estutu bat sentitu zuen, **atximurkada** bat. Joxemari Urteaga

Halako **atximurkada** bat sentitu nuen urdailaren ahoan. Anjel Lertxundi

Eta **atximurkada** bat sentitu zuen, baina ez maitasunezkoa. Julen Gabiria

Urdaileko mina, bat-bateko **atximurkada** batek ziztatuta: hamabi bat ordu dira hilketa gertatu denetik, eta orain arte nola ez zait burutik pasatu ere egin hildakoak izenen bat izango zuenik? Anjel Lertxundi

Bidean beste edozein umerekin topatu izan balira, bihurrikeriaren bat egingo zioten, baina Peterri **atximurkada** txiki bat egin zioten sudurrean, eta gero aurrera segitu zuten. Julen Gabiria

Ordutik nabaritu zituen **atximurkada** txikiak bihotzean. Unai Iturriaga

Biktimaren kontra abiatzen zen handik eta hemendik, **atximurkada** krudelak eginez ukitzen zuen bakoitzean. Julen Gabiria

Jaiki eta gizonaren beso iletsuan **atximurkada** maitekorra egin zion. Josu Landa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
atximurkada bat (3)

---

atximurkatu, atximurka(tu), atximurkatzen *(ETCn **150** agerraldi; orobat **atximurtu** ETCn **22** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **atximurkatu** agertzen da)* **1** du *ad* atximurka egin.

Ezpainak hozkatu zituen, izterra **atximurkatu**. Koro Navarro

Atximurka nazazu, jo nazazu, laztan nazazu... Jasone Osoro

Erabateko aginpidearen jabe, bat-batean titiburuak esku bakoitzeko hatz erakusle eta erpuruarekin hartu, eta indarrez **atximurkatzen** zizkidalarik, oso serio begiratzen zidan aurpegira. Ramon Saizarbitoria

Hura hiltzeko erabaki serioa, kamisoiaren behealdea gerrira jaso, neure gainean hankalatraba jarri eta, atsegin izateko intentzio nabarmenegiaz, titiburuak **atximurkatu** zizkidan egunean hartu nuen. Markos Zapiain

Umeen gelan ez zegoenez, kolkorako galdetu zuen bera ote zen benetan han zegoena, eta masailak **atximurkatu** zituen, eta orduan jakin zuen bera zela han zegoena, eta horrek gogorarazi zion abentura handi baten erdian zegoela. Julen Gabiria

Bere intuizioari, nire gorputzeko zein zoko nahi dudan ferekatzea jakiteko senari, zein muino **atximurkatu** edo miazkatu asmatzeari deabrukeria deritzot; baina ez dago egun osoa ferekatzen, miazkatzen edo **atximurkatzen** pasatzerik ere. Ramon Saizarbitoria

Neska haren azala **atximurkatzen** nuen bakoitzean, Danielak bihotzean sartu zidan arantza bat ateratzen nuela sentitzen nuen. Jasone Osoro

Denbora guztian, indarrez **atximurkatzen** zuen bere kokots-bizar argi nahasia, hartara ohitu gabea artean, eta behin eta berriro begiratzen zuen leihora, begiak -arrotuz eta kliskatuz. Jose Morales

Sergei Golovinek zerura begiratzen zuen, kokots-bizarra **atximurkatuz**, begiak kliskatzen zituen, noiz bata noiz bestea, bere betile harro luzeei eraginez, eta are sakonago murgiltzen zen bere gogoetetan. Jose Morales

Baina paper azpildu mordoxka atera zuen jakatik, asteko partilan billeteak zenbatzen zituenean bezalaxe **atximurkatuz** Falangearen bost geziak zeuzkan agiria atera zuen, huraxe irakurtzen utzi ninduen Untzaga plazaren erdian esbirro hark, nire izena makinaz joa bertan. Koldo Izagirre

2 ***sakela atximurkatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **sakela atximurtu** soilik, agerraldi **1**)*

Zati bat ordaindu beharra onartuz gero -estatu osorako erabakiko da-, herrialdeko erdi mailako eta behe mailako familia askok **sakela atximurtu** beharko dute gizarte zerbitzuak lortzeko. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
atximurkatzen zuen (3); **bizarra atximurkatzen** (3)

---

atximurtu ik **atximurkatu**.

---

atxis (onomatopeia) dominstiku egitearen hotsa.

Bisitatzera etortzen zaizkigun guztiak " **atxis** " batez agurtzen gaituzte. Josu Zabaleta

---

atxo *iz adkor* atsoa.

Atxoak buruko mina badauka, zinez nekatua dagoelako izanen da beti; baina, gizona buruko minak jotzen badu, gezurra: **atxoa** maite ez duelako sintoma besterik ez. Patziku Perurena

---

atxur **1** *iz* lurra lantzeko eta harrotzeko lanabesa, maizenik zurezko gider batez eta hari zeharka loturiko burdinazko xafla lau eta ahodun batez osatua.

Atxurrak eskuetan hartu eta zahagia joz, festa amaitu dela eta edaria utzi behar dela sin-bolizatuz. Berria - Kultura

2 bizarra mozteko tresna, bizar xafla.

Guraizeak eta bizarra kentzeko **atxurra** eta bitsa hartuta bueltatu zen, hamabost egunetan kotoizko ametsek eta merkrominazko amesgaiztoek babestu zuten kartzelara. Jasone Osoro

3 *adkor* mozkorraldia.

Sarjentu nazi hura zaplada eder bat ematera etortzen zitzaidanean sekulako **atxurrarekin**, hau da, nik gutxitan inor ikusi bezain mozkor arraildurik, ezin alaiago jartzen zen. Fernando Rey

A zer **atxurra** harrapatu zuen bonbilla-saltzaileak. Fernando Rey

---

atxurtu, atxur(tu), atxurtzen **1** du *ad* atxurrarekin lurra landu.

Ondoren, kantu sakratuak (mantrak) kantatu bitartean, ingurua **atxurtu** eta sugeak zakuan sarrarazi. Gotzon Garate

2 da *ad adkor* mozkortu.

Eta egon isilik, osterantzean boxeoaren zirkuituak moztuko ditiat, eta Bombita horren moduan ibiliko haiz, sudurra apurtuta, besteen morroi, egunero **atxurtuta** ... egunen batean itsasadarreko uretara jausi arte. Paddy Rekalde

-Bueno, hi, larregi **atxurtu** barik, bai? -eta giltzaz itxi zuen tabernako atea. Paddy Rekalde

---

atz ik **hatz**.

---

atzaman, atzamaten du *ad* ipar atzeman.

Anartean, elkibide bat **atzaman** düe apaidüak kanpoan prestaraziz. Herria

Antzerki llabürrak ikusi eta, püblikoa kümit da arrenküreetaz gogozkatzera eta elkibide **atzamaitea** . Herria

Gure Frantzia handian lan **atzamaiteko** . Herria

Ber manerala Zibero taldeak Federakuntza mailean Xiberoko 4 entrepresen lan eskentzak hedatü dütü jokülari berrien **atzamaiteko** , jin liratekeanak taldearen indartzera. Herria

---

atzamar 1 *iz* eskuetako hatza, eria.

Ezpainei kosk egiten zien etengabe, eta ezin zion **atzamarrak** elkarri lotu eta askatzeari utzi. Lopez de Arana

Ospitalera egindako bisitetan alabak ezagutu egin dituela adierazi dute gurasoek, besoetan hartu dutenetan haurrak **atzamarra** estutu diela eta. Berria - Gaiak

Bisitariak **atzamar** batez lerroak errepasatuz zenbatzeari ekin zion. Edorta Jimenez

Atzamarrak listuan busti eta seigarren orrialdera heldu zen. Patxi Zubizarreta

Musikaren sena aparta zeukan, eta **atzamarrek** jo beste doinu eskaintzen zizkion Eibarrek bere dantzaldi, banda saio eta saloietako jazpanen bitartez. Koldo Izagirre

Baina orduan erredura sumatu **atzamarrean** eta pospoloa bota du. Iñaki Iñurrieta

Eskuetako hamar **atzamarrak** moztu zizkioten eta etxera igorri zuten, jareginda. Gotzon Garate

Galderrek sudurtzuloetara eroan zituen **atzamar** likatsuak. Lutxo Egia

Hemendik begitzen den hori, ez baitakit nora ote doan -eta **atzamarrez** teilatuaren hutsartea seinalatu zidan, sabaia hautsita zegoen lekuan. Juan Garzia

Gauean belarraren gainean egiten dute dantza **atzamarrei** kriskitin eraginez eskuaren katiluan; kastaineten itzala baino ez da. Koldo Izagirre

Txarrimuturrek, besoak zabalik, puntu bat seinalatzen zion **atzamarraz** Txinori, eta beste bat, Valdési. Pedro Alberdi

2 *iz* atzaparra.

Ile ordez sugeak, **atzamar** zorrotzak eta hagin beldurgarriak zituztela irudikatu ohi ziren. Antton Olano

Gizonari begiratu nion, baina begiak taulan josita segitu zuen berak, gogoeta sakonean, **atzamar** izugarri batez kolpetxo leun pentsatiak emanez mahai gainean. Alberto Ladron Arana

3 ***atzamar egin*** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***atzamarka egin*** *agertzen da)* ik **atzamarka egin**.

Ez zuen ezustekorik nahi, oker ez bazegoen katuak bezalakoa izan baitziteken Teresa: mainatsu interesatzen zitzaionean; baina, baita ere, edozein unetan **atzamar egiteko** gai. Migel Angel Mintegi

4 ***atzamar erakusle*** hatz erakuslea.

Ilea ukitu nahi izan diot eta berak, burua apur bat jiratuz, hortzen artean harrapatu dit **atzamar erakuslea** . Joseba Sarrionandia

Gero, Jimmyri eztiki ukitu zion belauna **atzamar erakusleaz** . Lopez de Arana

Piettkak eta Zbixekek bat-batean, adibidez, euren solasa eten eta **atzamar erakuslea** jasoz guri ere isiltasuna eskatzen digutenean, aurpegi urduriz urrunera zelatan, nire belarriek ere hautematen dute durundi isila. Urtzi Urrutikoetxea

5 ***atzamar-oskol*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***3*** *agerraldi)*

Karmelek, orduan, besaulkian kuzkurtu eta abanikoa astintzeari ekin dio, amaren esku harramazkatuei begirik kendu ere egin barik; han dihardu, bere **atzamar-oskol** sendoekin izarak marruskatzen. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **atzamar artean** (11); **atzamar bat** (21); **atzamar batean** (3); **atzamar batez** (5); **atzamar erakuslea** (4); **atzamar luzea** (3); **atzamar puntak** (4); **atzamar puntekin** (3); **bere atzamar** (11); **bi atzamar** (5); **nire atzamar** (4); **zituen atzamar** (4)
>
> **atzamarra ahoan** (4)
>
> **atzamarrak bere** (3); **baina atzamarrak** (4); **eskuko atzamarrak** (3); **vulkanoren atzamarrak** (3); **zituen atzamarrak** (6)
>
> **bere atzamarrek** (3); **haren atzamarrek** (3)
>
> **zituen atzamarrekin** (3)
>
> **atzamarren artean** (8); **atzamarren artetik** (5)
>
> **atzamarrez seinalatu** (3)

---

atzamarka 1 *iz* atzamar kolpea. ik **atzaparkada**.

Gero, dardaraz, suari egurra eman eta berotzeko eseri zen; bat-batean, ordea, zirrara bat izan zuen, norbait ari zen horman **atzamarka** negarrez. Josu Zabaleta

Katu- **atzamarka** horiena ez dut garbi ikusten; baina mira-eragile gaiztoek berorrekin ohi dituzten gaiztakeria horietakoren bat izango da, nik uste; elkar ikusitakoan jakingo. Patxi Ezkiaga

Eritegian esan didatenez, neuk gaiztotzen omen ditut **atzamarka** zauriak. Anjel Lertxundi

Lurrari **atzamarka** ari zen, baina borreroek erauzi zuten, biluztu zuten eta azkenik pikotara lotu zuten. Juan Garzia

2 ***atzamarka egin*** *(orobat* ***atzamar egin****)* atzaparka egin.

Baten bat aurkezten diotenean, burua jiratzen du, eskua atzetik luzatu, lurrean makurtu izterrak tolestuta, eta paretan **atzamarka egiten** hasten da. Itziar Otegi

Sorbaldetatik astintzen zuen eta, hatz meheak katu amorratu baten antzera estutuz eta lasaituz, gorputzean **atzamarka egiten** zion alkandoratik zehar. Jose Morales

Batek **atzamarka egingo** dio eta aurpegia eta sudurra guztiz markatuta utziko dizkio. Patxi Ezkiaga

Mainatsu interesatzen zitzaionean; baina, baita ere, edozein unetan **atzamar egiteko** gai. Migel Angel Mintegi

Horietako batean leihotik begira autobusean doan mutiko bat ageri da eta itsasotik errepidera oldartzen diren olatuek, munstro zuri baten laztanek bezala, aurpegian **atzamarka egiten** diote. Joxean Agirre

---

atzamarkada *iz* atzaparkada. ik **atzamarka**.

Ellenen oinetan, alkandora tarrataturik eta lohiturik zuten makina bat ume zeuden; ahoak adurtsu, ukabilkadak, ausikiak, **atzamarkadak** ; narrats-usaina isurtzen zuten, ogi lizunak bezala. Lopez de Arana

Nahikoa diagu hainbeste negartirekin, hainbeste olerkari humanitariorekin, **atzamarkadarik** txikiena egin eta musuka hasten den hainbeste jenderekin. makumeak ubelduak,

atzamarkadak eta hipotermia zituen, eta Gasteizko ospitale batera eraman zuten. Karlos Zabala

---

atzamarkatu, atzamarka(tu), atzamarkatzen du *ad* atzaparkatu.

Bere onetik aterea zirudien, garrasika; ni banintz bezala bera jotzen eta **atzamarkatzen** zuena. Ramon Saizarbitoria

Ene sentimenduak **atzamarkatu** dituzte; eta jada ez gara atzo bezalakoak. Berria - Harian

Gero, nor ziren Don Kijote atximurtu eta **atzamarkatu** zuten "aztiak" jakitera ematen zaigu. Patxi Ezkiaga

Aurpegia **atzamarkatzen** zion hotz lehorrak: elur-hotza zen hura. Jon Muñoz

---

atzamartu ik **atzaparkatu**, **atzamarkatu**.

---

atzandel *iz* hatzetan babesgarri gisa jartzen den zorroa.

Gomazko **atzandel** batez miatu ninduen eta seguru aski haurdun nengoela esan zidan. Joseba Urteaga

---

atzapar *(ETCn **31.775** agerraldi)* **1** *iz* zenbait animaliatan, azazkal kakotu zorrotz eta gogorrak dituen esku edo oina. ik **atzamar**, **aztapar**.

-Kendu **atzapar** horiek zaldi gainetik, motel! -oihukatu dio Aitorrek, esku batean zartako bat emanez. Jokin Muñoz

Urrezko giza oin erraldoi bat, zelai urdin batean; oinak herensuge bat zanpatzen du, eta herensugeak oinaren orpoan dauzka **atzaparrak** sartuta. Koro Navarro

Kasik elkar ezagutu zutenetik, beti, txakurra eta gatua bezala ari ziren, **atzapar** ukaldi bat hemendik, beste bat handik, dena ñiauka eta ausiki! Daniel Landart

Arkakusoren bat edo zomorrotxoren bat ikusi ahala, **atzaparrekin** atzeman eta ahora. Gotzon Garate

Aztarrendu, gelditu, usnatu, **atzaparra** tinkatu, burua jaso eta, ulu egin du zerurantz, gauaren itzal osoa ahoan. Patziku Perurena

Ene atzean, harkaitz handi zut batek bere habia babesten duen arranoaren itxura hartzen du, **atzapar** biak mendian tinkatuak. Koldo Izagirre

Eta hantxe bertan, **atzaparrekin** lurra zulatzeari ekin omen zion, azazkalak odoldu zituen arte. Ramon Saizarbitoria

Goizetan, itsasoak behera egiten zuenean, harkaitzetako zuloak **atzapar** iletsuko itsas armiarmaz, malba-koloreko itsas izar likaz eta sabelalde gorriko karramarroz betetzen ziren. Xabier Olarra

Lehoiari **atzaparrak** eta hortzak eman zizkion Berberak zebraren gorputza marraztu zuen Bernardo Atxaga

2 irud/hed

Beraz egun ilunetan, esklabo ginen alemanen **atzaparretan**. Herria

XX. mendearen hasieratik orain arte, inperialismoaren **atzaparrak** luzatu dituzte munduan barrena. Berria - Mundua

-Hona hemen tximistaren **atzaparrak** sekula harrapatuko ez lukeen gizona -izan ziren alkateak agur moduan esan zituen hitzak. Felipe Juaristi

Bada garaia hemendik antolatzeko beharra gurera datozen etorkinei laguntza eskaintzeko, Poliziaren **atzaparretan** ez daitezen jausi laguntzeko. Paddy Rekalde

Nola erabili teknologiaren abantailak teknologiaren **atzaparretan** jausi gabe? Txema Ramirez de la Piscina

3 ***atzapar egin*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Usainak **atzapar egiten** ari dira. ETC-prentsa

Lant ezazue arrazoiaz gaindiko dohainen bat, eta ikusiko duzue, zuen onerako, nola mozten ahal dituzuen zentzudun guztien erpeak, haiek zuei **atzapar egiten** saiatzen direnean! ETC-literatura, saiakera

Atx, tentela, berriz **atzapar egin** didazu eskumuturreko horrekin, zergatik ez duzu gauez eranzten? ETC-literatura, saiakera

4 ***atzapar estu***

Irudimenezko oroimenak, pertzepzioaren une iragankorrak biltegiratu ez ezik, haiek eraldatu, urrundu, bizkortu, eta azala kentzen die: eratutako inpresioak berreratzen ditu, leku itogarriak ikuspegi zabal bihurtzen... desira bizi baten **atzapar estua** laxotzen du eta egitasmo emankor bihurtzen. Xabier Olarra

5 ***atzapar zuri*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Gaur (ez dakit zein egunetan bizi garen), alde batean Shisha zegoen eta beste aldean zorrotz horietariko asko, **atzapar zuriak** bezala zeru moreari mehatxuka ia, orain leba orain bare. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atzapar bat** (4); **atzapar batek** (3); **atzapar horiek** (4); **bere atzapar** (4); **beren atzapar** (4)
> **atzaparra bota** (4)
> **bere atzaparrak** (4)
> **atzaparrei ihes** (4)
> **atzaparren artean** (3)
> **atzaparretan erori** (5); **atzaparretan erortzeko** (5); **atzaparretan erortzen** (4); **atzaparretan ez** (4); **atzaparretan hartu** (3); **atzaparretan jausi** (9); **baten atzaparretan** (10); **bere atzaparretan** (6); **beren atzaparretan** (3); **haren atzaparretan** (6); **horren atzaparretan** (3); **tatiarren atzaparretan** (6)
> **atzaparretatik ihes egin** (4); **atzaparretatik libratu** (5); **heriotzaren atzaparretatik** (8); **horien atzaparretatik** (4)

---

atzapardun *izond* atzaparrak dituena.

Saiatu nintzen printzesaren izenaz akordatzen, haren zango luze, eratsu, galtzerdi beltzez jantziez, haren barreaz eta paperezko kizkurrez, baina hego **atzapardunek** harramazka egiten zidaten. Koro Navarro

---

atzaparka **1** *adlag* atzapar eginez, atzapar kolpeka.

Gizakiengandik banatu egiten ninduten ez haginka egiteko, eta, beraz, neure buruari egiten nion haginka eta **atzaparka**. Iñaki Mendiguren

Altxatu egin zen eta mahaian **atzaparka** hasi, azpila estali nahian edo, presati, zikinak lurperatu nahi dituzten katuen irudira. Karlos Zabala

Atzaparka aritzearen poderioz, azazkalak hautsiak eta janak dauzkat denak. Koldo Izagirre

Fang uluka hasi zen, itxitako atean **atzaparka**. Iñaki Mendiguren

Esate baterako, loreak -gladioli- edukitzeko baimena ematen zieten, eta beraiek baimen hori **atzaparka** hartu eta lore zuztarrak landatzen zituzten janari lata herdoilduetan. Bernardo Atxaga

Memok ezpata zorrotik aterea zuen, ezpainak hozkatuta, bibotea **atzaparka** kenduta amorruaren amorruz. Fernando Rey

Lurrean kizkurtu, murriztu eta hondoratu ziren haren eskuak, zoruari **atzaparka** irmo eutsirik, erpez eta gogorgunez beterik. Joxan Elosegi

Hortz zorrotz-zorrotzak dituzte eta **atzaparka** ere badakite minki egiten. Gotzon Garate

2 ***atzaparka egin*** atzaparkatu.

Ubeldurik zegoen eta mugitu egiten zen, niri **atzaparka** egiteko asmoz; bere beso-motzak ez ziren ailegatzen nire aurpegira. Monika Etxebarria

Han gertatu zen batak eta besteak nahi izan zutela arbolatik eroritako madari erdi ustel baten jabetza guztia eduki, eta horrenbestez elkarri ileetatik tiraka eta **atzaparka** egiten hasi ziren. Koldo Biguri

Zoaz harri honekin eta moztu iezazkiozu azkazalak anai Bonabenturari, **atzaparka** egin nahi baitio anai Joani, eta era horretara ez dio minik egingo **Atzaparka** egiten zidan edo ubelduak egiteko moduko alimaleko zapladak. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
atzaparka ari (4); **atzaparka egiten** (3)

---

atzaparkada **1** *iz* atzapar kolpea.

Ibilian-ibilian, halako batean emirra eta lehoia borrokatzen ari ziren tokira heldu ziren, noiz eta lehoiak, **atzaparkada** hilgarri batez, emirra erdibi egin behar zuenean. Patxi Zubizarreta

Hurrengo goizean, atearen kanpo aldea erreta eta **atzaparkadaz** josita aurkitu zuen. Joanes Urkixo

Hitlerren irudia kendu zidan paparretik **atzaparkada** zakar batez. Anjel Lertxundi

Edozein unetan mokokada zorrotzez eta **atzaparkadaz** gorputza urratuta izatea espero zuen, baina ez zen ezer gertatu. Iñaki Mendiguren

2 irud/hed

Galiziak gerraren eta ondoko zapalkuntzaren **atzaparkadak** bortizkien pairatu zituen herrialdeetako bat izan zen. Berria - Mundua

Marcus Gronholm finlandiarra, munduko txapelduna, izan du atzetik, **atzaparkada** eman eta hirugarren aldiz jarraian Rallya irabazteko asmoz. Berria - Kirola

Aitarenganako sentimendua, haatik, bikoitza da: haren nagusitasunak ikara eragiten dio, baina harexek babesten du mundu arrotzaren **atzaparkadetatik**. Markos Zapiain

Gaizkitzen ari da, baina ez dut sentitzen izarloken **atzaparkada** hauen aurrean sentitu behar nuela uste nuen ezer. Josu Zabaleta

Ostikatuen erremina trufazko lanabes bihurtu du, eta ostikatzaileen **atzaparkadarik** zorrotzenak lotsagarriki utzi ditu nabarmen, harik eta peluxezko panpinak bilakatu diren arte. Txema Ramirez de la Piscina

---

atzaparkari *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* *izond* atzaparka egiten duena.

Bederatzi miliako luzera zuen eta bosteko zabalera, eta itxuraz dragoi gizen **atzaparkari** bat ematen zuen; bi portu zituen ederki babestuak, eta erdialdean muino bat "Katalexu" izenaz seinalatua. ETC-literatura, saiakera

Horrenbestez, liskarra hasi zen zinez, eta argiak piztu zituztelarik viditu nuen haren litso izugarria rotetik krova zeriola, hain zuzen, kolpekatu egin nuelako ene ruka **atzaparkariz**. ETC-literatura, saiakera

Piztia **atzaparkari** eta arriskutsua, areago kaos egoeran dagoen estatua izanik. ETC-prentsa

---

atzaparkatu, *(orobat **atzamartu**)* atzaparka(tu), atzaparkatzen **1** du *ad* atzaparra ezarri, atzaparrez jo. ik **atzapartu**.

-Tigreak akometatu nau eta **atzaparkatu** nau! -erran zuen Mattinek. Joan Mari Irigoien

"Euria!" eta eztarria **atzaparkatzen** zuen, odolezko errubiak agertu arte, gauerdiko bere azalean distiratsu. Anton Garikano

Hankak ero, airea **atzaparkatu** du katuak bere herioan, uzkur-uzkur egin, gelditu, eta isildu egin da. Itziar Otegi

Gustura **atzamartuko** lituzke, amorruz, azazkalak sartuta, eta laranja bezala larrutu, Marseauren masail bermiloiak. Itziar Otegi

2 du *ad* lurrean edo, atzaparrez arakatu.

Lurra **atzaparkatzeko** desioa. Joxe Austin Arrieta

---

atzapartu, atzapartu, atzapartzen *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **atzaparkatu** agertzen da)* du *ad* atzaparra ezarri, atzaparrez jo. ik **aztaparkatu**; **atzaparkatu**.

Krimenean erabilitako arma eskuan **atzapartzen** dik oraindik horietariko batek. Aingeru Epaltza

"Begirazak!" esan zion, eta zeruari bizkar emanik goialdeko heldutokietan **atzapartu** zituen eskuak aurrena, gero hanka luzatu zuen lehen mailaren bila. Koldo Izagirre

---

atzapartzar *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* atzapar handia.

Mantxolaren **atzapartzarrek** Louis lurretik altxa eta sekulako bultzakada eginez, hilobiaren ertzeraino bidali zuen. ETC-literatura, saiakera

Etxandieneko aberats berriak besoak zabaldu eta handiena beharrietatik hartu zuen bere **atzapartzarrekin**. ETC-literatura, saiakera

---

atzar *iz* ardi zahar antzu eta haragitarako gizendua.

Zertaz egina zen? **Atzarra** edo ardi zaharra hil eta, haren haragiarekin egiten ziren salda eta tripotak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aenetaz baliatzen dira hiltzaileak, eta ondar egun hautan musulmanoek zelebratu duten **atzarraren** besta hartaz, denek ardi bat hiltzen baitute sakrifiotan. Herria

---

atzarki *iz* atzarraren okela.

Atzarkia edo zikiroa da hor ere gehienik jateko eta gero gaitzeko giroan pasatzen da egun osoa. Herria

---

atzarrarazi, atzarraraz, atzarrarazten du *ad* atzartzera behartu.

Baina, bestetik -zalantzatan baina-, arteak espainolak eurak lozorrotik **atzarrarazi** eta kreatibitate bidean jar ditzakeela ematen du pentsatu duela noizbait Ortega-k. Joxe Azurmendi

---

atzarri[1], atzar, atzartzen *(ETCn **892** agerraldi, horietatik **532** azken sei urteetan)* **1** da/du *ad* iratzarri. ik **atzartu**, **esnatu**.

Biharamunean, Josurenean **atzarri** nintzen, pareta biluz-biluziko ganbera batean. Aingeru Epaltza

Iduri luke gure herrian berriz ere pilotaren maitasun arrakasta ari dela **atzartzen**. Herria

Bi kafe hartu nituen gogotik, hobeki **atzartzeko**. Daniel Landart

Egoera hau, edo, ahalegin hau, **atzarri** garenean, eragozten dute, maizenik, gogoratu zaigun gauzaren existentzia baztertzen duten gauzen irudiek. Piarres Xarriton

Semeak larregi erne jartzea ere lortu zuten, haien ehiztari sena berpiztuz, eta haien betertzak **atzarririk** zeuden, ama ehizaki bilakaturik, eta ehizetsai elkarrenganako. Pako Aristi

Bien mintzoa entzutearekin emeki emeki **atzarri** ziren besteak, bata bestearen ondotik, baina ez zen nehor menturatzen zerbaiten erraitera. Michel Oronoz

2 (partizipio burutua izenondo gisa)

Ez du borrokaren folklorea gizendu nahi, baina bere lekukotasun zintzo eta gogoeta biluziekin jasoago eta **atzarriagoak** egiten gaitu gizakiak. Agurtzane Juanena

Bost inporta, galgarritasun horrek ere: Urrian ehiztaria, goizean goiz **atzarria**. Pello Zabala

3 ***atzarria egon*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Amodioa ez da lokartzen, loan ere **atzarria dago**. ETC-literatura, saiakera

Aspaldi du **atzarria dagoela**, baina orain arte uko egin dio jakingarriari. ETC-literatura, saiakera

4 ***atzarririk egon***

Saiatzen nintzen haren esperoan **atzarririk egotera**. Aingeru Epaltza

Hemendik aitzina **atzarririk egon** beharko dute, sailkapenean bederatzigarren lekutik gorago hupatzekotan. Herria

Eragin hori lortu zuten Isidoraren hitzek, benetan hartuak izan diren adierazle, baina semeak larregi erne jartzea ere lortu zuten, haien ehiztari sena berpiztuz, eta haien betertzak **atzarririk zeuden**, ama ehizaki bilakaturik, eta ehizetsai elkarrenganako. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atzarri naiz** (3); **atzarri nintzen** (3)

---

atzarri[2] *izond* buruargia, iratzarria.

Bidaian, berriz ere, erdi logale erdi **atzarria** eman dizut. Jose Angel Irigaray

Setheren samurtasuna, Paul D-ren lepoko bitxia ikustean... haren hiru eztenak, kriskitin-sugekume **atzarrien** antzekoak, metro erdi bat gora zutik. Anton Garikano

Jakiteko joeran, jakinduriarako atrebentzian, gizon **atzarria** eta ausarta da, filosofoak ausartzia hori maite baitu. Askoren artean

Atea iragan bezain laster, neskaren begi **atzarriak** alde batera eta bestera mugitu dira bizkor, joan-etorri bakoitzean tugurioaren zati bat zorrotz aztertuz. Patxi Iturritegi

---

atzarrik *adlag* atzarririk.

Airetikgaltzaile izan bada ere 19rekin, bertzela izaiten ahal zen! Huna berdintzeen zerrenda: 1-2-3-4-5-6-7-9-10 eta 14etan, hortik landa abantaila atxiki **atzarrik** (18-16; 20-17; 21-19) eta bukatu 22-19! Herria

---

atzartasun *iz* erne egotea, atzarri dagoenaren egoera.

Batzu bertzeak baino sotilago, jabeen **atzartasunaren** gatik. Herria

---

atzartu, atzar, atzartzen da/du *ad* atzarri.

Jakingura **atzartu** zitzaizun, eta zure galderak egiteko modu miatzaile eta itzulinguruz beteak pentsarazi zidan nire ezkutukoa haztatu nahi zenuela. Eduardo Matauko

---

atzartze *iz* aratzartzea.

Haundiek ere beren ametsaldiak izanki, baina **atzartze** dorpeak ondikotz nasaiki... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

atzazal *(orobat **atzazkal**)* iz. azazkala.

Lokartu aurretik dendan bertan oinetako **atzazalak** mozten jardun zuen eta gero, haren zurrungak, haren zerak... Patxi Zubizarreta

Neskatoaren **atzazal** luzeen muturrek Egutxiren belarri-gingila ziztatu zuten arinki. Ibon Uribarri

Matiasek **atzazal** baten punta ere jokatuko zukeen halako kasuak ez zirela munduan beste bi. Unai Elorriaga

Atzazal batzuk luze samarrak zeuzkala ohartu zen eta, atzamarren puntaz, behatz lodi batena ebaki zuen. Jon Arretxe

Pentsakor geratu zen burumakur, arreta handiaz **atzazalak** aztertzen zituela. Ramon Saizarbitoria

Zorri bilaketak kontzentrazio handia eskatzen zuen, atsegina zen gero bilaketa eta, batez ere, zorria bi **atzazalen** artean ipini eta zanpatzea, eta krak soinuak mendekuaren sinbolismoa zuen. Joseba Sarrionandia

Ilea arranoaren lumak bezain luze egin zitzaion eta **atzazalak** hegazti harraparienak bezalako. Elizen arteko biblia

atzazkal beltzez margotu horiekin. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atzazalak ere** (3); **atzazalak lepoan** (3)
> **atzazaletaraino zeharkatu nau** (3); **atzazaletaraino zeharkatu nauen** (3); **behatzetako atzazaletaraino zeharkatu** (6); **ileetatik behatzetako atzazaletaraino** (7)

---

atzazkal ik **azazkal**, **atzoskol**.

---

atze **1** *iz* edozein gauzatan, aurreko alderdiaren edo alde nagusiaren kontrako aldea.

Zimiterioa frontoi bat bezalakoa da: frontisa, ezker pareta, eta **atzea** libre. Pako Aristi

Soinekoaren **atzea** irinez zikindurik zegoen eta urratu handia zeukan beheko aldean... Jose Morales

Teknika horren bidez irudia **atzeari** itsasten zaio, horretarako lehenago aipatu diren irudiaren ezugarri berezietakoren batekin edo bat baino gehiagorekin jokatuz. Josu Zabaleta

Atzea ikusteko ispiluari begiratuta jakin zuen bere atzeko autoa geldirik zegoela, zain. Aitor Arana

Profitatzeko gertaera hura ahal nuen bezainbeste eta ez emateko aurreari sekula **atzea**. Hasier Etxeberria

Haurrak aurrera egin zuen bat-batean, eta elurrezko gizona, **atzea** deseginik, hautsi egin zen. Koro Navarro

Hamabi zezenen gainean zegoen uraska; hiru zezen iparraldera begira, beste hiru mendebaldera, beste hiru hegoaldera eta beste hiru ekialdera; **atzeak** barnealdera

zituzten. Elizen arteko biblia

2 (leku-denborazko atzizkiekin, singularrean; denborazko testuinguruetan, geroago datorren denbora adierazten du). ik **atzera**[1].

Egunkari baten **atzean** idazlea baino gehiago pertsona bilatzen dut, eta haren argiak, ilunak, kezkak eta larritasunak. Berria - Kultura

Zelai erdian zein **atzean** partida bikainak jokatu ditu eskuin hegalean. Berria - Kirola

Ezta bata bestearen **atzetik** hartu dituen interpretazio desberdinengatik edota filosofiaren historian izan bide duen eraginarengatik ere. Piarres Xarriton

Eta artetan Nafarroan gaindi ibiltzen zela artetan, familiaren erroen **atzetik**, eta non xuxen asmatuko nituen haren hatzak banekien ere. Piarres Aintziart

Izan ere, betetzen duen lehena kontratatzen duenaren zikoizkeriaren esku gelditzen da, gizonik gehienak, gure izaera maltzurragatik, motiborekin edo motiborik gabe, norberaren probetxuaren **atzetik** ibiltzen baitira. Esteban Antxustegi

Zalantzarik gabe, Txillardegirena zen horren **atzean** zegoen eskua eta burua. Koldo Zuazo

Nire aurrean panpinatxo zuri batek flotatzen zuen, Jules Verneren nobela bateko zakur hark bezala, zeinaren hilotzak eterrera bota eta gero astronauten **atzetik** jarraitzen baitzuen. Joseba Urteaga

3 (dagokion izen sintagmarik gabe)

Atzean, milaka lagun eta pankarta ugari, Itunaren kontrako aldarriak lortu duen aniztasunaren adierazle. Berria - Harian

Anoa tokira iritsi dira iheslariak, tropela ere bai **atzetik**, hartu dituzte jan beharrekoak, baina aurtengo Tourrean podiumean izateko hautagai zenak ezetz, ez duela aurrera egingo. Berria - Kirola

Edozein lantegirentzat kontatzen duen gehiena aitzinean dena da eta ez gibelean edo **atzean**. Herria

Eta bien arteko sokatira horretan gerta baledi batek besteari gaina hartzea, zuzentasuna eta zuhurtzia litzateke, dudarik gabe, **atzetik** legokeenari hartze duen lekua itzultzea. Piarres Xarriton

Atzean, ama eta gizon txiki beltzaran bat. Koldo Izagirre

Atzean utzi dut alferrikako bizitza hori guztia, batere lorpenik gabeko hitz jario hori. Ramon Etxezarreta

4 (atzean, atzetik formetan, ibili, joan... bezalako aditzekin) norbaiten edo zerbaiten jarraian; bila.

Orso Nerok auskalo zer pentsatu zuen eta nire **atzetik hasi** zen lasterka ipurdian sekulako ostikoa emateko. Pello Lizarralde

Sortzaile gisa, adierazpen egokiaren bila, hitz zehatzen **atzetik ibili** zen beti. Berria - Harian

Erretilua hartu eta haren **atzetik joan** nintzen eskaileretan gora bere logelaraino. Fernando Rey

Hemen badirudi denok norbaiten **atzean gabiltzala**, baina norberak bilatzen duena eta norberaren bila dabilena ez dira bat izaten, bi baino. Edorta Jimenez

Gogo txarrez obeditu nion eta amaren **atzetik joan** nintzen, arnasestuka, aldapan gora, jauntxoarenera, familia osoa kale gorrian utzi gintuen gizonaren etxera. Juan Martin Elexpuru

Aldagai ezkutuen **atzetik** dabiltza, hau da, mundua esplikatzeko aukera emango liguketen baina ezagutzen ez ditugun xehetasunen **atzetik**. Berria - Gaiak

Eta orduan txoriak ere Peterren **atzetik hasten** ziren, mokadua berreskuratzeko; eta halaxe ibiliko ziren milia luzez, azkenean bakoitza bere bidetik joan arte, irribarrea marraztuz. Julen Gabiria

Herria bi zekor haietariko baten **atzetik joan** zen Daneraino. Elizen arteko biblia

Gure eginkizuna haien **atzetik ibiltzea** eta agure gizajo horren eta bere alaba maitagarriaren ohorea aldarrikatzea da. Lopez de Arana

-Ez jaramonik egin -esan zuen Hermionek, Harryren **atzean zihoalarik**. Iñaki Mendiguren

Betidanik euskara herrikoiaren **atzetik** ibili geranok askotan baztertuak aurkitu gara. Herria

Ninfak aditu zuenean nor zen **atzetik ibili** zitzaion jainkoa, lotsagorritu egin zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bizitza osoan haien **atzetik ibilita** ere, inoiz ez dituzu harrapatuko. Jose Morales

Noizbait, polizia **atzetik zebilkion** susmoa hartu zuen. Iñaki Zabaleta

Zure arrastoaren **atzean nabil**, orpo-orpotik. Jon Alonso

5 ***ate atzean bota*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ikaskizunok ez baitziren **ate atzean botatzeko** modukoak. ETC-literatura, saiakera

-Proposamena ez zuten **ate atzean bota**. ETC-literatura, saiakera

6 ***atze-atzean***

Halako batean, ez berak nahi bezain laster, sagarrondoa aurkitu zuen, hesiaren ondo-ondoan, zaindarien etxetxoaren **atze-atzean** justu. Felipe Juaristi

Atze-atzean. Jon Muñoz

Bere islaren **atze-atzean** zegoen emakume batek eskuaz agur egiten zion irribarretsu. Iñaki Mendiguren

Zer esatea gura duzu: goizean, Yosemite parkeko sekuoiak ikustera joan garenean, Rakel eta Ruben **atze-atzean** geratu direla? Patxi Zubizarreta

Eta amak erakutsi egiten zizkidan, baina nik desilusio pixka bat hartzen nuen desenfokatuta zeudelako, eta aita **atze-atzean** baizik agertzen ez zelako, itzal ñimiño baten moduan. Fernando Rey

Gurean, betiko antzean gabiltza, **atze-atzean** alegia. Txema Ramirez de la Piscina

7 ***atze-atzeka*** *adlag*

Atze-atzeka segituko nion. Edorta Jimenez

8 ***atze-atzetik***

Harriak bere jomuga iritsi baino lehen, beste harri batek, izugarria hura ere, hegan zeharkatu zuen airea, eta haren **atze-atzetik** beste batek gero. Jon Muñoz

Izarrek distira dardaratia egiten zuten zeru beltzaren **atze-atzetik**. Josu Zabaleta

Lurralde honetan entzun dudanez, ero zentzudun bat omen da Don Kijote nire nagusia; edota zoro irrigarri bat; eta ni ez omen noakio oso **atze-atzetik**. Patxi Ezkiaga

9 ***atze-aurre*** *iz pl* atzeko eta aurreko aldeak.

Hain larria da egoera?, galdetu nion, **atze-aurre** guztiak biltzeko ahaleginean. Anjel Lertxundi

Noski halako gogo-zabal egin gintuenak, **atze-aurreen** so egile, ez zigun eman gaitasun eta jainkozko arrazoimen hori erabiltzeke lizun zedin gugan. Juan Garzia

Atze-aurredun kapa zekarren soinean, zapi txuri batez lotu-lotua. Patxi Ezkiaga

10 ***atze-aurredun***

Eta halaxe egin zuten, mutil gaztea zertan ari ote zen begira-begira; **atze-aurredun** kapa zekarren soinean, zapi txuri batez lotu-lotua. Patxi Ezkiaga

11 ***atze-oihal*** eszenatokietako atzeko oihala.

Bi eszena-hegal eta **atze-oihal** bat, ate batekin, aski izango dira. Josu Zabaleta

Atze-oihala goratu eta segituan, han ageri zen gure amona Pina pintzelarekin eta margotzeko astoarekin eta hitzok esaten zituen: [...]. Fernando Rey

Konpainia-burua eta Aita salbu, lurrean egongo baita oraindik eskaileratxoaren ondoan, gainerako guztiak zeruarena egiten duen **atze oihalaren** atzean desagertu izango dira. Josu Zabaleta

Bazerien igurikimen-kutsu halako bat, desatsegina ez zen urduritasun apur bat, **atze-oihala** igo zain daudenei antzeman ohi zaiena bezalakoa. Mirentxu Larrañaga

12 ***atzea eman*** bizkarra eman; ez jaramonik egin.

Bakarrik bere barrunbera itzultzen denari, Jainkoaren zolagune guztiz garbi hartara itzuli, **atzea emanez** sorkari guztiei. Joan Mari Lekuona

Frantsesa da benetako kultura bakarra, eta gu, euskaldun akulturatuok, gure primitibotasunean, futitu egiten gara benetako kulturaz, eta **atzea ematen** diogu aurrerabideari, eta mamuen hizkuntzan maite ditugu gure haurrak. Berria - Kultura

Kartzeleroa zetorrela sumatzen zuenetan hasten ei zen gainera, ateari **atzea emanez** kokoriko jarrita, bere obramendua egiten. Jokin Urain

Eta sarri, pertsiaren aurkako erasoen erdian, zaldiek astoen arrantza aditzean, asaldaturik **atzea eman** ohi zuten, eta belarriak tente gelditzen ziren harriturik, lehenago halako hotsik eta aberejerik ikusi gabeak zirelako **Atzea eman** eta basamorturantz, Rimon harkaitzerantz, ihes egin zutenetarik ere bost mila gizon harrapatu zituzten bidean israeldarrek eta gainerakoak Gidomeraino pertsegitu, beste bi mila hilez. Patziku Perurena

Pianoari **atzea emanez** eta eskuak elkar-trukaturik ere badaki jotzen. Xabier Olarra

13 *atzean gelditu*

Atzean gelditu dira muinoak, argi leunpean, beren baratze-mailekin, beren olibondo zartatu eta mahatsondoekin; zaharrak dira baratze-mailak, etruskoen garaikoak. Xabier Olarra

Lipar batez, tren jasoaren habe baten **atzean gelditu** zen, sustoa pasatzen zitzaion bitartean. Lopez de Arana

Eskualdea **atzean gelditu** zenean eta Arroiltxurietako hegoaldeko aldapak inguratuz Muino Urrunetara eta Dorreetara iritsi zirenean, urrunean Itsasoa ikusi zuten, eta horrela jaitsi ziren azkenik Mithlonderantz, Lungo estuario luzeko Portu Grisetarantz. Agustin Otsoa

Ibilaldi osoan, **atzean geldituak** bilduz eta herria suspertuz joan zen Judas, Judea lurraldera heldu ziren arte. Elizen arteko biblia

Txikiagoa izanagatik ere (alderdiaren ordezkaritza mailaz ari naiz bakarrik) Llamaza ez da **atzean gelditu**. Berria - Euskal Herria

Deflazioaren arriskua "**atzean gelditu**» dela, eta lehentasuna inflazioaren aurkako borroka izango dela iragarri zuen. Berria - Ekonomia

Alabaina, ileak urdinduak eta begi inguruetan zimur zenbait bazituen gizon hura, bere gaztaroko fantasmak bezalaxe **atzean gelditu** zen mutiko gazte hura eta bera zela sinetsi nahiz, etengabe so egoten zitzaion. Elena Touyarou

Baimena eskatu nion zerbitzuburuari, eta Metxa bizkarretik helduta bazter batera eraman nuen, ondoratu nahi izan zitzaizkigun lagunei **atzean gelditzeko** keinua eginez. Koldo Izagirre

Zapatuetako goatekeetan ezagututako mutilak, euren zirriak eta ausarkeriak **atzean geldituak** ziren. Urtzi Urrutikoeetxea

Txakurtxo bat herrenka zetorren eta oso **atzean gelditu** zen. Gotzon Garate

Baina kutxa nahiz banketxeak ez daude **atzean gelditzeko** prest. Berria - Harian

Atzean gelditu diren herrialdeetan handitu behar da ekoizpena. Berria - Gaiak

Ez natzaik **atzean geldituko**. Anjel Lertxundi

Eta hori gutxi balitz, Pili **atzean gelditzen** hasi da. Pako Aristi

Senideak ere ez ziren **atzean gelditu**; batek armonika, besteak atabala... hango festak ez zuen kanpoko musikarien beharrik izan. Xabier Etxabe

Beshir **atzean gelditua** zen eta inguruka zebilen gurditxoaren ondoan usainka. Fernando Rey

Egin zien baztertzekoa, patrolaren **atzean gelditu** ziren. Pablo Sastre

Baina hala izanda ere: arroza ez zaio **atzean gelditzen** pastari, arroza gisatuz egindako risotto klase konta ezinak dira horren lekuko. Anjel Lertxundi

Eskuineko hanka **atzean gelditzen** zitzaion pausoa ematean. Bernardo Atxaga

14 ***atzeko*** *izond/iz* atzean edo atzetik dena edo dagoena.

Eta testu guztiaren atzean, bizitzea tokatu zitzaion agertokiko **atzeko** oihal bezala, egoera politikoa, esespena, gerra eta arrazakeria, bizitza eta heriotza. Josu Zabaleta

Aurrekoen kontra bultzaka, **atzekoen** bultzadapean, izerdi usaina eta era guztietako lozioak eta beroa ziren nagusi ar saldoaren korronte hartan. Iñaki Iñurrieta

Txirrina jo eta berehala, Paolo Ferrarik korridorea korrika eta presaka gurutzatu, eta atze-**atzeko** gelan gordetzen zen. Fernando Rey

Hobe dugu basamortuko aldetik sartu; hilobira **atzeko** murrura igota iritsiko gara, aire zabalean dagoen aiekan. Patxi Zubizarreta

Atzekoak, aurrera, aurrera zakurraren trostari segika! Koro Navarro

Autoan sartu orduko, ene gorputza bota nuen tanpalahara **atzeko** aulkien gainera eta seko lokartu nintzen. Daniel Landart

Horregatik, bada, leiho bakoitzaren **atzeko** begi haiek. Fernando Rey

Keinu berak errepikatu zituzten biek, azkenean abereak etsi zuen arte, ondoan gelditu zitzaion, lasai, **atzeko** hanken gainean bermaturik eta biak egon ziren, luzaz, etxe gotor haren ikusmiratzen. Elena Touyarou

Atzeko gurpila ez zen egonen erroitzetik zenbait hazbetera baino, noiz ere eskaleak, agure xahar konkortua eta kasik elbarria, hurbildu eta harri bati egin dion bultza oinarekin. Koldo Izagirre

Ibiltzen naizela!, ate osteko ezezagunaz, errezel **atzekoaz**, armairu barrukoaz, ohe azpiko ezezagunaz naiz beldur. Josu Zabaleta

Baina ezer egiteko berandu zen: **atzeko** bazterretan zeuden gazteak gehiago hurbildu eta, zalantzak gainditurik, azkenean batek arpoia piztiaren bizkarrean josteko kemena bildu zuen. Joanes Urkixo

Trafiko urriaz gozatzen bide zihoan batek balaztada handia eman behar izan zuen atzetik ez jotzeko; beste horrenbeste haren **atzekoak**. Migel Angel Mintegi

15 ***atzeko alde*** atzealdea.

Konforme geratu denean **atzeko aldea** erabat betetzen duten bi kutxen artetik maletatxo bat hartu du eskaera koadernoak, katalogoak eta bisita txartelak barrenean daudela egiaztatzeko. Pello Lizarralde

Autobusera itzuli garenean, **atzeko aldera** joan naiz, denen aparte, lotarako asmoz. Anjel Lertxundi

Baldintza bi bete beharko ditu ibilgailu horrek: euren burua babesteko xafla gardena izatea batetik, eta **atzeko aldean** lau bidaiari hartzeko beste leku izatea, bestetik. Berria - Harian

Kaxa preziatu hura **atzeko aldean** sarturik, aurreko atea ireki zuen. Edorta Jimenez

Ordu batean puntuan Goio irten eta, bere liburuak besapean, bakarrik joan zen frontoiaren **atzeko alderantz** zelai erreglamentarioan zehar. Joseba Sarrionandia

Handik ikusten nuen Gorriz, eta ibarraren **atzeko aldean**, Itoitz eta Orbaitz. Edurne Elizondo

Asko zeukan gure gizonak koipe horretatik, pare bat kontenedore, fabrikaren **atzeko aldean**. Hasier Etxeberria

Atzeko aldetik, besapetik helduta, dizipuluetako batek eusten dio. Imanol Zurutuza

Etxeak bazuen **atzeko aldean** adobezko hesi-horma bat, arbaztaz estalia, barruan ukuilua, gurdiarentzako teilapea, aihendegia, dolarea, bodega, olio-errota eta zenbait patio eta eskorta hartzen zituena. Josu Zabaleta

Egia da, anitz datu aurki baitaitezke hemen, gehienak testuan zehar eta batzuk **atzeko aldean** tauletan bilduak, irakurketa arintzeko asmoz eramanak hara. Pello Salaburu

16 ***atzeko azal***

-"Hogwartseko prefektuen eta geroko ibilbideen azterketa" -irakurri zuen Ronek ozen **atzeko azalean**. Iñaki Mendiguren

Harryk liburuaren **atzeko azalari** begiratu zion eta Londreseko Vauxhall Road-eko aldizkari-saltzaile baten izena ikusi zuen inprimatuta. Iñaki Mendiguren

Azpeitiko seme Jose Artetxenekoak liburu asko idatzi zituen, horietako bat El gran asombro izenekoa, eta liburu horretan ni gehiena asombratzen, harritzen eta harri bihurtzen nauena da **atzeko azalean** autorearen aurkezpen gisa ageri den hauxe: Iñaki Segurola

17 ***atzeko gorputzadar*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Dagoeneko ikasi dugu zenbait balea-espeziek aztarnapelbisak eta atzeko gorputz-adarren hezur batzuk dauzkatela oraindik, baina, horrez gainera, 500 baleatik bat **atzeko gorputzadar** bat duela jaiotzen da, gorputz-paretan irtengune baten gisa nabarmentzen zaiona. ETC-zientzia, zuzenbidea

Atzeko gorputzadarrak: izter garatuak. Ipurmasail eta hanka luze eta gihartsuak. Eseki-leku zabal eta sendoak. ETC-entziklopedia

18 ***atzeko hagin***

Maiteak, hatz erakuslearekin batera erpurua ere ahoan sartu eta **atzeko hagin** bat atera zuen. Anton Garikano

19 ***atzeko plano***

Badago, izan ere, bat bestea gabe eragitea (sakontasuna oso ongi iradoki daiteke **atzeko plano** lauso baten bidez, eta oso irudi garden bat egin daiteke sakontasuna nekez sumatzeko moduan), eta, beste alde batetik, gardentasun uniforme horrek irudiaren azalera guztia hartzearekin ere jokatzen du. Josu Zabaleta

Berdin William Kleinen artezki honetan ere (Errebolberra, 1954), lehenengo planoaren eta **atzeko planoaren** arteko proportziorik ezak, gehiegizko perspektibak, eragiten dute desitxuraketa-efektu hori. Josu Zabaleta

Baliteke inbasioaren urteurrenari buruzko albisteek segundo gutxi irautea eta **atzeko planoan** ateratzea. Berria - Mundua

Nerea eta Sebas ageri ziren, etxeko ezkaratzean; plano motzean eta mugiturik Nerea, eta **atzeko planoan**, hamaka batean etzanda, Sebas, zigarroa erretzen. Eider Rodriguez

20 *atzeko trakzio* *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Atzeko trakzioa (ingelesezko laburdura "RWD", Rear-Wheel Drive), ibilgailuetan motorraren indar-parearen mugimendua atzeko gurpilen ardatzera transmititzen den sistema da. ETC-entziklopedia

Hor, **atzeko trakziodun** autoak ederki dabiltza gozatzen. ETC-prentsa

Esaterako, Clioak aurreko trakzioa du, eta Chevroletak, ostera, **atzeko trakzioa**. ETC-prentsa

BMW markako autoek, **atzeko trakzioa** dutenek, ezin zuten gasolindegitik irten. ETC-prentsa

Aldapa gogorra zegoen han, baina, Seat 850 hark **atzeko trakzioa** zuenez, primeran igotzen zuen. ETC-prentsa

Izan ere, Josu Joni ulertu diodanez, bere ustez EAJ **atzeko trakzioko** sisteman tradizio-motorea doala dirudi, eta aurreko gurpilak atzekoen mende dauzkala. ETC-prentsa

21 *atzekoz aurrera* 1 *adlag* atzekoa aurrean eta aurrekoa atzean. ik**alderantziz**.

Ezin ahaztu, alabaina, hizkuntz unitate bat osatzen duten elementuak beste hurrenkera batean ordenatzeko eskueran ditugun aukeretako bat baino ez dela aurrekoz atzera zegoena **atzekoz aurrera** jartzea. Iñaki Arranz

Hala ere, gauzak **atzekoz aurrera** kontatzen ari naizela iruditzen zait. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta, irakurtzen duenean, beti azkeneko orrialdeetatik hasten da, **atzekoz aurrera**. Jokin Muñoz

Hala izaten da maiz; **atzekoz aurrera** mintzatzen da askotan. Itziar Otegi

Eskerrak nire lagunak estimatzen ninduen: ugazaba, izan ere, sarri egon ohi zen triste, gauzak **atzekoz aurrera** ateratzen zitzaizkiolako, eta orduan morroiekin hartzen zuen mendekua. Josu Zabaleta

Eta Maria arranguratu zen, eta otu zitzaion hura zela egunean **atzekoz aurrera** egin zuen laugarren gauza, eta Lucasek hiru aste zeramatzala ohetik altxatu gabe eta nahiko gaixorik zegoela. Unai Elorriaga

Eta kontakizuna aurrera doa, **atzekoz aurrera**. Monika Etxebarria

2 *irud/hed* Ez gatoz eraginak eta maisuak **atzekoz aurrera** jartzera, baina interesgarria da datua, Historia maiuskuladuna bezala literaturaren historia ere nola egiten eta kontatzen den gogoeta egiteko. Berria - Kultura

Arrebak **atzekoz aurrera** ipini zuen gurasoen ahalkea, Kojuak eskatu behar omen zukeen barkamena ni udaltzainetara ekartzeagatik. Koldo Izagirre

Atzekoz aurrera ipini beharra daukagu zenbait gauza, besteak beste, eskola bera. Koldo Zuazo

22 *atzekoz aurrerako*

Dena den, ez da Urain izan ordea **atzekoz aurrerako** teknika honen erabiltzaile bakarra. Iñigo Aranbarri

Atzekoz aurrerako hurrenkeran datoz lau sailon zenbakiak: lau, hiru, bi, eta bat-zero. Joxerra Garzia

Eta XIX. eta XX. mendeetako sarraskietan eta zoritxar-katean ni ikasle eta jasale paraturik, barruan prestatutako **atzekoz aurrerako** ibilkizun kontra-kronologiko zentzudun eta subjetiboetatik zeharo hastantzen nindutela sentitzen nuen. Txillardegi

Edonola ere, askotan iduri luke **atzekoz aurrerako** bidea hartu duela egileak. Iñaki Arranz

Erosioaren **atzekoz aurrerako** bidea da, nolabait, denboraren iragaitea. Hasier Etxeberria

23 *atzeranzko ingeniaritza* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Hau **atzeranzko ingeniaritza** deituriko prozesu baten zatia da; horren bidez, eskema kontzeptual bat sortzen da lehendik inplementatutako datu-base baterako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehiaketa horretan hainbat froga egiten dira: **atzeranzko ingeniaritza**, kriptografia edo logika lantzeko ariketak. ETC-prentsa

Software jabedunarekin hori ezagutu ahal izateko, **atzeranzko ingeniaritza** prozesu luze bat burutu beharra dago. ETC-entziklopedia

24 *atzeranzko isurketa* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Gernuan esperma aurkituko balitz, **atzeranzko isurketa** baten aurrean geundeke eta, ondorioz, beharrezkoa izango litzateke bezeroa urologia-zerbitzura bideratzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

25 *aurreak erakusten du atzea nola dantzatu*

Bakoitzak bere iritzikideentzat botatzen zuena, lehenek esaten zuten, **Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu**, bigarrenek zioten, Lehen ogi-papurra, txolarreentzat, hirugarrenek ironikoki bukatzen zuten, Azkena irri egiten duenak, gustuen egiten du. Jon Alonso

Pirpok - **aurreak erakusten du atzea nola dantzatu** - erantzun egiten zien, protestaka hasten zen bera ere, lanturuka konfiantza faltagatik. Bernardo Atxaga

26 *hipofisiaren atzeko gingil* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Orduan, **hipofisiaren atzeko gingilak** hormona antidiuretiko gehiago jariatuz erantzuten du. ETC-zientzia, zuzenbidea

27 *lepo-atze* *(orobat **lepatze** g.er.)* *iz*

Neskak arropak jantzi zituen eta **lepo atzea** laztandu zion negarrez ari zen mutil biluziari. Harkaitz Cano

Bi mutikotxo zintzo, jakin-minak bizitutako masail-gorriak ageri zituztenak, eta **lepo-atze** bero eta hezeak. Mirentxu Larrañaga

Barne zirrarak kilikatzen zuen **lepatzean**, irribarrea kanporatu zitzaion eta inguru guztia, han zeuden jendeak edertu egin ziren, alaitu, Angierentzat. Iñaki Zabaleta

Violetak haize zaflada beroa sumatu zuen **lepo atzean**. Aritz Gorrotxategi

"Eta zein izango litzateke gure izen artistikoa?" Teresak **lepo atzetik** pasa zizkidan besoak. Bernardo Atxaga

28 *pantailako atzeko plano* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Informatika munduan, **pantailako atzeko planoa**, pantailako horma-papera edo pantailako horma irudia esaten zaio, ordenagailu pertsonaletan, tabletetan eta komunikazio gailuetan, pantailan ezartzen den argazki edo irudi apaingarriari. ETC-entziklopedia

---

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

atze atzean (20)

atzea eman (12)

askoren atzean (11); **ate atzean** (26); **atearen atzean** (16); **atze atzean** (20); **atzean arrazoi** (12); **atzean beste** (19); **atzean dago** (16); **atzean dagoen** (64); **atzean dagoena** (24); **atzean dauden** (34); **atzean egon** (16); **atzean ere** (22); **atzean eserita** (20); **atzean ez** (30); **atzean ezkutatu zen** (16); **atzean ezkutaturik** (17); **atzean ezkutatuta** (15); **atzean ezkutatzen** (39); **atzean gelditu** (48); **atzean gelditzen** (34); **atzean geratu da** (11); **atzean geratu dira** (18); **atzean geratu zen** (33); **atzean geratu ziren** (22); **atzean geratzen ari** (12); **atzean gorde** (12); **atzean gordeta** (11); **atzean interes** (12); **atzean jarri zen** (11); **atzean jarrita** (12); **atzean sartu** (13); **atzean sendo** (24); **atzean utzi ditu** (12); **atzean utzi nahi** (14); **atzean utzi zituen** (26); **atzean utzi zuen** (18); **atzean utziko** (22); **atzean utzirik** (20); **atzean utzita** (65); **atzean utzitako** (21); **atzean utziz** (23); **atzean uztea** (25); **atzean uzteko** (51); **atzean uzten** (46); **atzean zegoen** (64); **atzean zer dagoen** (28); **atzean zeuden** (13); **atzean zituela** (16); **aurrean eta atzean** (12); **baina atzean** (26); **bakoitzaren atzean** (23); **barra atzean** (12); **bata bestearen atzean** (38); **baten atzean ezkutatu** (18); **batzuen atzean** (14); **belarri atzean** (13); **betaurrekoen atzean** (15); **bizkar atzean** (18); **buru atzean** (17); **dago atzean** (12); **dira atzean** (12); **du atzean** (30); **erabaki horren atzean** (11); **erabakiaren atzean** (23); **ere atzean** (16); **eskuak atzean** (30); **ez da atzean** (12); **ez zen atzean** (13); **gure atzean** (30); **guztiak atzean** (16); **guztien atzean** (24); **han atzean** (21); **hauen atzean** (17); **honen atzean** (40); **hor atzean** (28); **horien atzean** (57); **horren guztiaren atzean** (14); **nire atzean** (82); **oso atzean** (30); **postuak atzean** (11); **salmahaiaren atzean** (13); **zioen pankartaren atzean** (15); **ziren atzean** (14); **zituen atzean** (11); **zuen atzean** (29); **zure atzean** (13); **zuten atzean** (11)

atzerantz begiratu (12); **atzerantz bota** (18); **atzerantz egin** (23); **atzerantz eraman** (12); **burua atzerantz** (29)

arrastoaren atzetik (20); **atzetik abiatu zen** (29); **atzetik abiatu ziren** (12); **atzetik aritu** (12); **atzetik atera** (16); **atzetik aurrera** (35); **atzetik begira** (13); **atzetik bere** (12); **atzetik beste** (35); **atzetik dabil** (15); **atzetik datozen** (15); **atzetik egin** (17); **atzetik ematen** (11); **atzetik ere** (17); **atzetik etorri ziren** (16); **atzetik etorriko** (27); **atzetik etorrita** (11); **atzetik hasi** (15); **atzetik heldu** (12); **atzetik hurbildu** (11); **atzetik ibili** (66); **atzetik ibiltzen** (33); **atzetik irten** (18); **atzetik izan** (12); **atzetik jarraika** (15); **atzetik jarraitu zion** (13); **atzetik jarraitzen** (28); **atzetik jarri** (11); **atzetik jo** (18); **atzetik joan nintzen** (18); **atzetik joan zen** (49); **atzetik joan ziren** (26); **atzetik joan zitzaion** (26); **atzetik joango** (17); **atzetik joatea** (12); **atzetik joateko** (22); **atzetik joaten** (28); **atzetik korrika** (28); **atzetik lasterka** (30); **atzetik sailkatu** (12); **atzetik sartu** (25); **atzetik segika** (51); **atzetik zebilela** (14); **atzetik zebilen** (13); **atzetik zetorren** (17); **atzetik zetozen** (17); **atzetik zihoan** (18); **atzetik zihoazen** (13); **atzetik zituela** (23); **atzetik zuela** (23); **aurretik eta atzetik** (15); **baina atzetik** (31); **bata bestearen atzetik** (251); **baten atzetik** (120); **beraren atzetik** (16); **ditu atzetik** (14); **du atzetik** (14); **ere atzetik** (15); **gure atzetik** (47); **guztiak atzetik** (11); **haien atzetik joan** (14); **haren atzetik joan** (33); **hire atzetik** (11); **honen atzetik** (15); **horien atzetik** (34);

---

atzealde **1** *iz* atzeko aldea.

2 *iz* (pluralean nahiz singularrean) ipurtaldea.

Bat-batean ile beltz luzedun neska baten **atzealdeak** balizko gomutapenetatik atera zaitu bortizki. Sonia Gonzalez

Galdeketa honetan, aurpegian, buruaren **atzealdean** eta lepoan eskuekin kolpatu ninduten. Berria - Euskal Herria

Atzealdetik zeukaten ilargia eta, horregatik, mutilak ezin zizkien ez aurpegiak ez begiak ikusi. Xabier Aranburu

Edurne Caterpilar bere jesarlekutik altxatu, eta biziro estutu zuen bere kontra, **atzealdeko** titiak nahigabe zanpatuz. Karlos Linazasoro

Mapa, hark eramaten du beti, motxilaren **atzealdeko** zorroan, oso eskura, behar duenean hartzeko. Jokin Muñoz

Baina maltzur alaenak, bere **atzealdean** ematea utzirik, arbolari ematen hasi zen. Patxi Ezkiaga

Bost ehun liberako paperak agertu bezain laster desagertzen ziren, betaurreko ilunen **atzealdean** gorde gizonen papoetan. Itxaro Borda

Ama sukaldera etortzen zen, **atzealdea** garbitzera balde batean; trapu mutur batez sikatu, eta lotara itzultzen zen. Eskarne Mujika

Gutun honek zuenera iristea lortu badu, paper honetan bilduta iritsi zaizuen erretratu hori **atzealdean** datorren helbidera eramateko faborea egin behar didazue. Arantxa Iturbe

Hedabideen lana ez baita itxuraz gertatzen dena kontatzea, benetan gertatzen dena baizik, bere plegu, zimur eta **atzealde** guztiekin. Iñigo Aranbarri

Halako batean jarri naiz ikaslerik saiatuenetako baten **atzealdean**, eta ikusi dut hasiera-hasieran oker bat egin duela, eta gainerako guztia ere gaizki ari dela erantzuten lehen oker horren erruz. Joxerra Garzia

-Kaixo, Mona -oihukatu zuen norbaitek saloiaren **atzealdetik**, pianoaren ondotik. Fernando Rey

Iazko denboraldian **atzealdean** aritutako lau jokalari ez daude aurten. Berria - Kirola

Aurretik buru-soila zen, baina ile hori-grisaxka zuen buruaren **atzealdean**. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai bezala)

Dena den, belaun **atzealdeko** zuntz arazoak dituela dio, eta gerritik "asko tiratzen" diotela. Berria - Kirola

-Begiak! -amaitu zuen esaldia Justok, lepo **atzealdean** hotzikara zabaltzen sumatzen zuela. Joxemari Urteaga

Gol **atzealdera** urrutiratu zen mornatarrak atzetik zituela. Joanes Urkixo

Orduan beltzarana bizkarra ferekatzen hasi zaio; makurrarazi du haren gorputz **atzealdea** begi bistan izateko, arrakala igurtzi dio eta hatz bat zuloan sartzen saiatu da. Juan Martin Elexpuru

Mikelen kilika belarri **atzealdean** dago. Alberto Barandiaren

---

atzegoardia *(ETCn **20** agerrialdi; orobat **atzeguardia**, ETCn **180** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **atzegoardia** agertzen da) iz* frontetik edo etsaiarengandik urrutien dagoen aldea. ik **erretagoardia**.

Barbaroen mendi-aliatua, ordea, intxaur gogorragoa gertatu zen kraskatzeko, eta barbarotasunaren goi-lurretako **atzegoardiak**, bere azken eginkizun etsigarrietan, argitasun harrigarria erakutsi zuen. Iñaki Mendiguren

Gudu-talderik handienak, beraz, hiriaren iparraldera zuen kanpalekua; **atzegoardia**, berriz, mendebaldera zegoen. Gau hartan Josue ibar erdiraino joan zen. Elizen arteko biblia

Ez zihoazen Bilbo aldera, Sollube mendiko **atzeguardiara** baino. Edorta Jimenez

Azkenik, kanpamendu guztien **atzeguardian** dandarren banderapeko kanpamendua abiatu zen bere gudari-taldeekin. Elizen arteko biblia

---

atzeguarda ik **atzegoardia**.

---

atzeguardia ik **atzegoardia**.

---

atzeka *adlag* atzera eginez; atzea emanez.

Atzeka zegoen jarrita, trenaren noranzkoari bizkar emanez, eta mandatariak bere eserlekua eskaini zion. Karlos Zabala

Atze- **atzeka** segituko nion. Edorta Jimenez

---

atzekalde ik **atzealde**.

---

atzekale *iz* kale ezkutua.

Lizarriturri baretu da Eladioren ziztada zaputzetik, eta **atzekalean** lan egiten duen okulistari bere lehen soldatarena kontatzen ari zaio. Pako Aristi

---

atzekari *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi) iz* beste elementu batekiko kokapenean atzean dagoena; aurrekari edo antezedentearen segidan datorrena.

Baina, ongi ezaguna da esakuneak logika formalean binaka doazela, eta bata bestean alda daitekeela aurrekaria eta **atzekaria**, subjektua eta predikatua, eta abar lekuz aldatuz. ETC-literatura, saiakera

Fisikariaren begietan, mundua gertakari sorta batera mugatzen da eta gertakari horiek soil-soilik, alde batetik hasierako gertakarien araberakoak dira eta, bestetik, **atzekariak** eta aurrekariak elkarlotzen dituzten legeen araberakoak. ETC-literatura, saiakera

Hamabi dantzariak dira, eta aurrekari bat izaten dute aurrean eta **atzekari** bat atzean. ETC-prentsa

Aurrekari baten (adierazpena, esanahia) eta **atzekari** baten (edukia, esanahia) arteko erlazioa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Goiko laringe nerbioak 4. arkuko eratorriak inerbatzen ditu eta laringe nerbio **atzekariak** 6. arkutik eratorririkoak. ETC-entziklopedia

Ezkerrera bideratzen diren zuntzek zintzur nerbio **atzekaria** sortuko dute eta honek aorta arkua behetik inguratuko du eta zintzurrestera bideratuko da atzealdetik. ETC-entziklopedia

---

atzeki *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* atzizkia.

Paisaia hitza frantsesaren "Pays" hitzetik dator, hau da, herrialdea. "Aje" **atzekiak** "ekintza" esan nahi du. ETC-entziklopedia

---

atzeko ik **atze 9**.

---

atzelari **1** *iz* pilota-jokoan zein taldekako beste zenbait kiroletan atzean jartzen den jokalaria.

Egun taldean dauden erdiko **atzelariek** ere makina bat lan dute sasoi batekoak ahaztarazten. Berria - Kirola

Baloia hartu zuen, **atzelari** bat gainditu, beste bati baloia hankartetik pasatu eta gero, atezainak orkatilatik heldu ote zion ziur ez bazegoen ere, lurrera jausi zen. Aritz Gorrotxategi

Martinek mutil frantses-euskaldun bat aukeratu zuen **atzelari**, Artxipiren okindegian ofiziale zegoena eta Bautista Urbide deitzen zena. Koro Navarro

Orain arte ez zaizkizu sekula praka laburretan pilota baten atzetik dabiltzan aurrelari, **atzelari** eta defentsak hain hutsalak iruditu. Sonia Gonzalez

Horregatik, Lauaxetaren **atzelari** lanetara sartu nintzen frontoira, baina alferrik izan zen, 22 eta 8 irabazi baitzigun hala ere mutiko isilak. Juan Luis Zabala

Hire aita aurrelaria zuan, ni hegala, besteak **atzelari** eta eskuineko erdilari, ez nauk gogoratzen. Josu Zabaleta

Katxok errabiaz ekiten zion pilotari, falta bat egin eta sutan jartzen zen; amorratuta, lurra jotzen zuen xisterarekin eta **atzelariari** leporatzen zion gertatzen ari zen guztiaren errua. Koro Navarro

2 *iz* peioratiboki esanda, gizonezkoekin sexu harremanak dituen gizonezkoa.

Atzelariak esaten zaie grina horretara emanak direnei; baina, **atzelaria** izatekotan, Eugeni, osorik izan beharra dago. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gorroto dut Freddy Mercury, **atzelari** halakoa... Harkaitz Cano

Baita maritxu eta **atzelari** ere. Iñigo Aranbarri

Burua zelan atzera bota erakutsi dit odol jarioa eteteko, eta beltzez jantzitakoaren gainean zera azpimarratu du: "ijitoa", gero, labur hausnartu ostean, gaineratu du: **"atzelaria** duk, hori ziur". Urtzi Urrutikoetxea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzelari argentinarra (6); **atzelari bakarra** (4); **atzelari bat** (13); **atzelari batek** (6); **atzelari baten** (3); **atzelari beteranoak** (3); **atzelari brasildarra** (4); **atzelari errioxarrak** (3); **atzelari espainiarrak** (4); **atzelari frantziarra fitxatu** (3); **atzelari gasteiztarrak** (4); **atzelari gaztea** (5); **atzelari gazteak** (8); **atzelari greziarrak** (3); **atzelari iruindarrak** (3); **atzelari madrildarrak** (3); **atzelari nafarra** (3); **atzelari nafarrak** (3); **atzelari postuan** (7); **atzelari txuri** (3); **atzelari zentrala** (6); **aurrelariek atzelari** (3); **baina atzelari** (4); **bi atzelari** (12); **bost atzelari** (6); **brechet atzelari frantziarra** (3); **da atzelari** (3); **du atzelari** (3); **erdiko atzelari gisa** (4); **esan zuen atzelari** (3); **eskuin hegaleko atzelari** (6); **ezker atzelari** (3); **ezker hegaleko atzelari** (4); **hegaleko atzelari gisa** (3); **jeremie brechet atzelari** (3); **lau atzelari** (6); **urteko atzelari** (5)

atzelaria bere (3); **atzelaria da** (19); **atzelaria ez** (3); **atzelaria izan arren** (5); **atzelaria izan zen** (6); **beizamako atzelaria** (4); **burlatako atzelaria** (4); **doneztebeko atzelaria** (3); **duen atzelaria** (4); **erdiko atzelaria** (10); **ezker hegaleko atzelaria** (3); **leitzako atzelaria** (4); **lizarrako atzelaria** (4); **mugaireko atzelaria** (3); **primerako atzelaria** (3); **x alaveseko atzelaria** (3); **x asegarceko atzelaria** (5); **x aspeko atzelaria** (3); **x athleticeko atzelaria** (3); **x osasunako atzelaria** (10)

abartzuzako atzelariak (5); **athleticeko atzelariak** (4); **atzelariak asko** (3); **atzelariak atzo azpimarratu** (3); **atzelariak bere** (3); **atzelariak ere** (4); **atzelariak eskua** (3); **atzelariak ez dira** (3); **atzelariak izan** (3); **atzelariak partida** (4); **azpeitiko atzelariak** (4); **beizamako atzelariak** (5); **bere atzelariak** (4); **bi atzelariak** (15); **burlatako atzelariak** (7); **doneztebeko atzelariak** (5); **erdiko atzelariak** (17); **etxarriko atzelariak** (10); **ezkarozeko atzelariak** (4); **ezker hegaleko atzelariak** (3); **leitzako atzelariak** (6); **lizarrako atzelariak** (9); **mugaireko atzelariak** (3); **osasunako atzelariak** (3); **realeko atzelariak** (6); **taldeko atzelariak** (6); **zubiriko atzelariak** (7); **zuen atzelariak** (4)

atzelariaren hutsunea (3)

atzelariek ere (3); **atzelariek ez dute** (5); **bi atzelariek** (5); **erdiko atzelariek** (3); **realeko atzelariek** (3)

atzelarien artean (10); **atzelarien arteko lehia** (3); **bi atzelarien** (3); **erdilari eta atzelarien** (3)

bi atzelarik (3)

atzelarirekin aritu (3); **atzelarirekin jokatu** (3); **bost atzelarirekin** (9); **erdiko hiru atzelarirekin** (4); **lau atzelarirekin** (4)

---

atzemaile *izond/iz* pertsonez mintzatuz, zerbait edo norbait atzematen duena. ik **atzitzaile**.

Denbora puska neurgaitz batez, munduaren **atzemaile** abstraktutzat jo nuen neure burua. Juan Garzia

Batetik, badirelako ikusmen sisteman mugimenduaren **atzemaile** bereziak, erretinan elkarrengandik hurbil dauden puntuetan eragina duten seinaleak kodetzeko gai direnak. Josu Zabaleta

---

atzeman, atzeman, atzematen **1** du *ad* ihes egin dezakeena gatibu edo preso hartu; piztiez, arrainez eta kidekoez mintzatuz, harrapatu.

Joko zozo hortan badira **atzemanak** izan direnak eta bortizki gaztigatuak. Herria

Londresko hiru txalupa militar **atzeman** dituzte Irakeko mugan. Berria - Mundua

Don Justinianoren dorreak, hala ere, gora eta gora jarraitzen du, haziz eta haziz doan munstroak oilarra bere atzaparretan **atzeman** nahiko balu bezala. Joan Mari Irigoien

Badakik, eskutitzak beti bidean **atzeman** daitezkek. Iban Zaldua

Atzeman zutenean, izugarrizko sarekadak gertatu ziren, eta, azkenean, buruzagitza osoa eta aparatua ia dena desegin zuten. Rafa Egiguren

Diagonal hiribidean Erakundeak zeukan etxebizitzan **atzeman** ninduten gertakariek. Txillardegi

Paul D zer egin erabaki nahian ari zela Northpoint Bankeko agente batek **atzeman** eta eraman zuen Delawarera, non esklabo-lanak egin zituen urtebetean. Anton Garikano

2 irud/hed

Beste bat heriotzak **atzemana** diena izan da Gracian Setoain, Luzaide Vitoriaineko seme 5 haurren aita. Herria

3 du *ad* adimenaren bidez sumatu, hauteman.

Nik, ordea, horixe nahi nuen jakin, emakume hori ezagutu, bere saminaren berri ikasi, gerrak haren bihotzean utzitako zauria zein zen **atzeman**. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina, diskorako, ideia politago **atzeman** dut aitak gogoratu bezala azaltzea. Berria - Kultura

Burua jaso du gauaren ahotsa bilatzearren, eta iluntasuna xurgatu ahala gauaren muina **atzeman** du, eta muin horrek bizidun lokartu berrien hats sosegatua eta gauan barneratzeko prestatu direnen begi zolia dauzka. Pello Lizarralde

Ikuspuntu horretatik, arimaren hilezkortasunaren dogmak eragin izugarria du gizakiengan, egoitza-aldaketa huts baten ideia **atzeman**-errazagoa baita gure gogoarentzat, eta gozoagoa gure bihotzarentzat, beste aldaketa batena baino. Iñaki Iñurrieta

Garai batean Ruper zen mundua **atzemateko** katalizatzailea. Eider Rodriguez

4 du *ad* aurkitu.

Beraz, San Bartolome gauean, ondo begiratu, ea errainu urdinxkaren bat edo ur eta odol aztarnak **atzematen** diren Zarauzko Narrosen. Martin Anso

Non eta nola **atzeman** duzue hainbeste dantzari, kantari eta musikari? Herria

Mafarroan, minbizia garaiz **atzemateko** 45 eta 69 urte bitarteko emakumeei egiten zaie deialdia. Berria - Harian

Ezjakitearen agonia jasan ezinezkoa gertatu zitzaidan azkenean, eta arduraz mugitu nintzen aurreraka, luze-luze besoak eta begiak beren zuloetatik atera beharrean, argi-izpi meheren bat **atzemateko** itxaropenaz. Koro Navarro

Hortik abiatzea pentsatu du, ezezaguna baitzaio bidea, zer **atzemango**, nora iritsiko. Xabier Mendiguren Elizegi

Egoera txarra bada ere, hobe batera pasa gaitezke, gai eta idazle aproposak **atzemanez** gero. Berria - Kultura

Halatan, hogeita hamar edo berrogeiren bat haize-errota **atzeman** zituzten landa hartan. Anjel Lertxundi

Zehazki, ikertzaileek **atzeman** dituzte Parmalatek bere burua finantzatzeko inbertsoreei jaulkitako tituluei dagozkien dokumentuak. Berria - Ekonomia

Senpe berez hil bazen, zergatik **atzeman** zizkioten bizkarreko arrasto haiek autopsian? Hasier Etxeberria

5 (partizipio burutua izenondo gisa)

Lerroa ezin zuzenago luzatzen zen tarte batez; gero, eskumuturraren higitze doi **atzemanarekin** batera, kurbatzen hasten zen, perfekzio geometriko osoa ageri zuen trazadura zalantzagabean. Iñaki Iñurrieta

6 ***izariko zapata atzeman*** bikotekide egokia aurkitu.

Eta oraikoan Mutxurdin eta Karlosek atxemanen dute **izariko** zapeta! bixtan da gomita hau auzo herrietako ezkont-gaientzat ere bali dela! Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

armak atzeman (3); **arrastoak atzeman** (4); **arrastorik atzeman** (4); **artean atzeman** (3); **asko atzeman** (4)

atzeman ahal izan (4); **atzeman ahal izateko** (8); **atzeman arte** (5); **atzeman baino lehen** (3); **atzeman baitaiteke** (3); **atzeman baitzituen** (4); **atzeman behar ditu** (3); **atzeman beharko** (4); **atzeman berri** (3); **atzeman bide** (3); **atzeman daiteke** (20); **atzeman daitekeen** (3); **atzeman daitezke** (11); **atzeman daitezkeen** (4); **atzeman diete** (5); **atzeman diote** (6); **atzeman dira** (3); **atzeman diren** (6); **atzeman dituela** (5); **atzeman dituen** (3); **atzeman ditut** (4); **atzeman dituzte zientzialariek** (3); **atzeman dituztela** (10); **atzeman dituzten** (3); **atzeman dizkiete** (4); **atzeman dudan** (6); **atzeman duela** (5); **atzeman dugu** (8); **atzeman dut** (12); **atzeman dute birusa** (3); **atzeman dutela** (8); **atzeman duten** (6); **atzeman egin** (5); **atzeman eta bere** (3); **atzeman ez** (15); **atzeman ezin** (4); **atzeman ezinik** (4); **atzeman gabe** (6); **atzeman genuen** (4); **atzeman gintuen** (3); **atzeman izan** (4); **atzeman nahi izatea** (7); **atzeman nahian** (14); **atzeman nahiko** (3); **atzeman nahirik** (4); **atzeman nahiz** (3); **atzeman ninduen** (3); **atzeman nion** (3); **atzeman nituen** (7); **atzeman nuen** (21); **atzeman ohi** (5); **atzeman omen** (3); **atzeman ondoren** (8); **atzeman ostean** (3); **atzeman ote** (3); **atzeman zen** (3); **atzeman zitekeen** (3); **atzeman zituela esan** (3); **atzeman zituen atzo** (3); **atzeman zituztela** (5); **atzeman zituzten atzo** (4); **atzeman zizkieten** (4); **atzeman zizkion** (4); **atzeman zizkiotela** (3); **atzeman zizkioten** (11); **atzeman zuela** (5); **atzeman zuen poliziak** (6); **atzeman zuenean** (4); **atzeman zutela** (8); **atzeman zuten atzo** (4); **atzeman zuten ikertzaileek** (3); **atzeman zutenean** (5)

batean atzeman zuten (3); **batek atzeman** (4); **baten gorpua atzeman** (9); **batez atzeman** (3); **batzuk atzeman** (5); **berean atzeman** (4); **berehala atzeman** (3); **berri bat atzeman** (4); **berriak atzeman** (3); **bertan atzeman** (3); **bi atzeman** (3); **bi ontzi atzeman** (4); **bidean atzeman** (3); **bidez atzeman** (4); **birusa atzeman dute** (4); **bizirik atzeman** (3); **bularreko minbizia atzeman** (3); **dela atzeman** (3); **dokumentazio ugari atzeman** (4); **dokumentazioa atzeman** (3); **duela atzeman** (3); **edo atzeman** (4); **ere atzeman dituzte** (4); **ere atzeman zituzten** (6); **ere atzeman zuten** (5); **erradioaktiboa atzeman** (3); **erraz atzeman** (3); **estasi pilula atzeman** (3); **etorkin atzeman** (5); **euro atzeman** (4); **ez atzeman** (3); **ez dituzte atzeman** (3); **ez dute atzeman** (3); **ez dutela atzeman** (3); **ez nuen atzeman** (4); **ez zuen atzeman** (3); **ezin atzeman** (9); **faltsu atzeman** (3); **gabe atzeman** (4); **gaitza atzeman** (5); **gakoa atzeman** (3); **garaiz atzeman** (3); **gehiago atzeman** (4); **gizon atzeman** (3); **gora atzeman** (3); **gorpua atzeman dute** (3); **gorpua atzeman zuten** (4); **gorpuak atzeman** (4); **gripearen birusa atzeman** (4); **gutxira atzeman** (4); **haizea atzeman nahi** (7); **han atzeman** (3); **hartan atzeman** (3); **hau atzeman** (3); **haxix atzeman** (3); **heroina atzeman** (4); **hilik atzeman dute** (3); **hori atzeman** (5); **horiek atzeman** (6); **hura atzeman** (6); **ilargi atzeman ditu** (3); **inoiz atzeman** (4); **inon atzeman** (3); **irregulartasunak atzeman** (3); **iruzurra atzeman du** (3); **kasu atzeman dituzte** (4); **kilo kokaina atzeman** (9); **kilo lehergai atzeman** (3); **kokaina atzeman dituzte** (4); **kokaina atzeman zituzten** (4); **lagun atzeman** (3); **lehergailuak atzeman** (3); **metano gasa atzeman** (3); **munizioa atzeman** (3); **nik atzeman** (3); **nola atzeman** (3); **non atzeman** (3); **norbait atzeman** (3); **ontzi atzeman zituzten** (4); **ontzi bat atzeman** (3); **oraindik atzeman** (3); **pertsona atzeman** (4); **poliziak atzeman** (3); **poltsa bat atzeman** (3); **tumorea atzeman** (3); **txiki atzeman** (3); **zantzuak atzeman** (4); **zantzurik atzeman** (4); **zela atzeman** (5); **zen atzeman** (3); **zer atzeman** (3); **zerbait atzeman** (7); **zuela atzeman** (3)

baten atzemaiteko (3)

atzemaiten dit (3)

atzemana izan zen (3)

atzemandako agiri baten (3); **atzemandako agiriak** (5); **atzemandako agirien** (3); **atzemandako agirietan egunkaria** (3); **atzemandako hainbat** (4); **atzemandako idatzi batean** (3); **atzemandako materiala** (3); **etari atzemandako** (3); **iradiri atzemandako** (3); **kideri atzemandako** (3); **miaketatan atzemandako** (3); **operazioan atzemandako** (3); **ordenagailuan atzemandako agiri** (3); **otamendiren ordenagailuan atzemandako** (3); **poliziak atzemandako** (3); **ustez atzemandako agirietan** (3)

atzemanen dut (3)

atzemango ditugu (3); **atzemango dituzu** (3); **atzemango du** (3); **atzemango dugu** (4); **ere atzemango** (3)

atzematen da (25); **atzematen den** (5); **atzematen dira** (15); **atzematen diren** (9); **atzematen ditu** (4); **atzematen dituen** (4); **atzematen ditugu** (4); **atzematen ditugun** (3); **atzematen dituzte** (7); **atzematen du** (12); **atzematen duen** (7); **atzematen duenean** (4); **atzematen dugu** (4); **atzematen dute** (4); **atzematen ez** (15); **atzematen laguntzen** (4); **atzematen nuen** (4); **atzematen saiatu** (3); **atzematen zaio** (3); **atzematen zen** (10); **atzematen ziren** (10); **atzematen zituen** (5); **atzematen zituzten** (3); **atzematen zitzaion** (5); **atzematen zuen** (7); **bezala atzematen** (3); **da atzematen** (3); **ere atzematen** (7); **gehiago atzematen** (4); **horiek atzematen** (5); **nola atzematen** (4)

---

atzemanarazi, atzemanaraz, atzemanarazten *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* du *ad* atzematera behartu.

Testu orfiko berantiar batzuetan ere nabarmentzen da jainko monoteista bat **atzemanarazten** duen tradizio zaharragoaren razionalizazio-ahalegina. ETC-literatura, saiakera

Eta lehen areagotze baten indarrez gure barne-bizitzaren jarraipena **atzemanarazten** bazigun ere, nahiz eta gutako gehienak ez joan askozaz urrunago, areagotze garaiago batek agian gure izatearen erroetaraino eramango zuen eta, horrenbestez, biziaren hasieraraino bertaraino oro har. ETC-literatura, saiakera

---

atzemanezin *izond* atzematen ezinezkoa dena.

Aldi berean, ordea, bazuen ingurukoengandik babesten zuen zerbait, **atzemanezina** zela sentiarazten zizun zerbait. Iñaki Iñurrieta

Arraro samarra sentitu arren, ulergarria zitzaion artikulu gehientsuenetako euskara, baina artikulu askoren mamian kontu askotxo zitzaizkion guztiz arrotz, urrun, **atzemanezin**. Juan Luis Zabala

Jendea zutitu, begiak itxi eta hatzekin airea ukitzen saiatzen da, guretzat **atzemanezina** dena heldu nahian: aireko ore ikusezinarekin ogi sakratua laztantzen ari bailiran. Harkaitz Cano

Eta orain galdetuko lidake buruargiren batek, oldarrean: eta eternitartea **atzemanezina** bada? Karlos Linazasoro

Berez **atzemanezina** zen hutsunea finkatuz joan da erlazio aldakor horretan. Berria - Kultura

---

atzemangailu *iz* detektagailua.

-Ulertuko duzuen bezala, honi buruz txosten bat egin beharko dugu: hor pilatutako material hori guztia suharbera da, ez daukazue ke **atzemangailurik**, gainera sarrera atea urrunegi dago bizilekuetatik... Harkaitz Cano

---

atzemangaitz *izond* atzematen zaila dena.

Bat-batean, halako dardara **atzemangaitz** bat hedatu zen harrera-gelan, haizetxo leun bat sartu balitz bezala. Jose Morales

-Erdi Aroko zaldun ibiltariek eta trobadoreek beren dama bezain goian ia, **atzemangaitz** -Enrikek, adar hotsa hitzetan. Iñaki Iñurrieta

Gainbehera motaren bat argien erakusten duten bakarrak, nahiz eta gainbehera hori oso sotila izan, **atzemangaitza**. Iban Zaldua

Are: aldakortasun **atzemangaitz** hori izango naiz. Juan Garzia

Ezerk ez du indarrik egiten "intercourse"ren eraginaren kontra, transizio **atzemangaitzak** baizik ez dauden hizkuntza masa batean. Isabel Arrigain

---

atzemangarri *izond* atzematen erraza dena.

Hortaz, hizkuntzak, lehen begiratuan **atzemangarriak** ez diren banakoak izatea du ezaugarri arrotz eta harrigarri. Isabel Arrigain

Irudia, ez da ahaztu behar, mundu honetako gauza bat da lehenik eta behin, gainerako gauza guztiak bezala **atzemangarri** egiten duten ezaugarri fisiko batzuk dituena. Josu Zabaleta

Konturatuak ginen, Giulia eta biok, esku ezezagun berek, gure absentzian, aztarna doi-doi **atzemangarriak** uzten zituztela laboratorioan. Juan Garzia

atzemate *iz atzeman* aditzari dagokion ekintza.

"Informazio sekretu ona elkarbanatzea, haiek Al Kaeda **atzematea** eta justiziaren aurrera eramateko prest egotea" da helburu hori lortzeko modua, Bushen ustez. Berria - Mundua

Urrun zegoen oraindik, baina bizkor heldu zen, errepidea irentsiz, gu ahalik eta lehenen **atzematea** xede. Joxan Elosegi

Beti denbora laburrez, harik eta Eduarda andrea **atzematea** lortu zuen arte. Bego Montorio

-Hain zaila al zen iruzurra **atzematea**? -ausartu zen galdetzera Maiza. Migel Angel Mintegi

---

atzen 11 iz. azkena.

Azkena eta **atzena** antzerakoak dira, eta bada udatzen esaten duenik ere. Pello Zabala

Horietako bat, **atzen** samarrekoa, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea dugu. Patziku Perurena

2 *ord* azkena.

Zorionekoak bost bider, **atzen** egunera arte, uztarri hautsi gabean amodioak harrapatu zituenak. Patziku Perurena

3 ***atzena*** *adlag* azkenik.

Atzena marmarka hasi zen (eta ez marmarra atzeraka hasi zen) baina leku bat hutsik begiz jorik (eta ez begi joriz laku bat husturik), han joan zen itsumustuan (eta ez zen musean joan itsu-itsuan). Xabier Olarra

-Noiz hitz egin huen harekin **atzena**? Koro Navarro

4 ***atzenean*** *adlag* azkenean.

Apretagile batek sartu behar izan zuen borrokaldian, eta ostikoka eta bultzaka, bereizi zituen **atzenean** bi arerioak. Koro Navarro

Eta hainbeste sortzailek zalakatu du, non **atzenean** sorkari arrotz, itxuragabe, eta izugarri bihurtu den. Patziku Perurena

Ezin izan dut erdi bidean geratu; beti, **atzenean**, galdera bat nagusitu izan zait: nor/zer da gizakia? Jenaro Garate

Eskopeta txar bat zeraman, **atzen-atzenean** baizik ezin balia zezakeena. Koro Navarro

5 ***atzeneko*** *izond* azkenekoa.

Azken urteotan Ipar Euskal Herriko gainerateko herri guztiak Bil ta Garbi sindikatuan antolatu dira hondakinen arazoari aterabidea **atzeneko** gutiziaz. Berria - Euskal Herria

Argiaren ahultasunak ez zigun **atzeneko** partea ikusten uzten. Koro Navarro

Atzeneko honek, Sarako erretoraren pasarte sonatu hura ekarri dit gogora. Patziku Perurena

Mexikora joatekoa zen, eta **atzeneko** unean egonalditxo bat egin nahi zuela Habanan esan zuen. Koro Navarro

Eman zioten gizonek **atzeneko** eskualdia zirkuari, eta igandean, jendea bezperetatik ateratzen ari zen unean, atzetik agurea zuela, hezlea azaldu zen Urbiako plazan, elizaren aurrean. Koro Navarro

6 ***atzenerako*** *adlag* azkenerako.

Baina Elizak **atzenerako** bereganatu egin zuen eliza laikoon gobernua, batez ere Clunyko erreformarekin hasi eta gehienak bere agindupera para zituen arte. Patziku Perurena

Atzenerako IRA ofizialekoak berarekin aspertu eta taldetik kanporatu zuten. Pablo Sastre

---

atzenaldi *iz* azkenaldia.

Atzenaldira nazkatzeko moduan ugaldu den "aktore beltz" horixe bihurtu zaigu demokraziari azken zentzua edo "sententzia" ematen dion diktadore moderno. Patziku Perurena

---

atzenarazi, atzenaraz, atzernarazten du *ad* atzentzera behartu.

Nea zuloan otordu txikia jateko betarik ez diete uzten eta, gosea **atzenarazteko**, koka hosto mingotsak eta lejia mastekatzen dituzte. Pablo Sastre

Indianoa ohituta zegoen neskak aise errenditzera, dirua berogarri ezin hobea baita bakartien ohetarako, eta Juana Bixentaren ezezkoak **atzenarazi** ordez, adoretu egin zuen gizona. Anjel Lertxundi

Ausartzia osoz, han nizkioan, susmoek **atzenarazirik** manerak, zigiluak hautsi haien errege-mandatuari. Juan Garzia

---

atzendu, atzen(du), atzentzen da/du *ad* ahaztu, eta bereziki ahaztuxe izan.

1001 gauetako Xerazade haren antzera, herioaren ezpata **atzentzeko** kontu-kontari ari zaigu Brooklyngo aztia, narrazioaren festa etengabeko batean. Berria - Kultura

Atzerriko azkenportu horretan, ordurako zure herriak ahaztuta izango zaituelako, edota zeuk ere zeure herria zer den ia **atzenduta** izango duzulako. Joseba Sarrionandia

-Ahal duzularik, baina ez **atzendu**, faborez. Pello Lizarralde

Interes handia piztu du gaur egun ingeniari eta kirurgialarien artean, luzaroan **atzenduta** egon eta gero, giltzaduren lubrikazioaren ikerketak. Irene Aldasoro

Gorrotatuko zaituzte eta, ahal izanez gero, hil ere hilko zaituzte, behartzen dituzulako jabetzera jakin bai baina bizi lasaiaren truke **atzendu** nahi zuten horretaz. Koldo Biguri

Gogotik **atzendua** nuen aspaldiko gertaera hori, harik eta lehengo horretan, oso modan dagoen hondartza batean, emakume dotore, pinpirin, xarmant, maitagarri, begirunea zioten gizonez inguratu bat ikusi nuen arte. Josu Zabaleta

Haren zantzuan zebilen, haren aztarna aurkitzen zuen nonahi, baina gainerakook **atzendu** samarra geneukan Vladimir, zertan uka. Koldo Izagirre

Ez omen zion, bezero gehienekin egin ohi zuen bezala, bere aldakak nagiki mugituz ezer lizunik esan, edo bere biluztasunaren aurrerapen gisa, gabardina bizkarreraino **atzenduz**, bere bularrak hanpatu. Joxean Agirre

Eta gauero haurraren lilura-nahiak irabazi egiten dio amaren nekeari, etzanaulkiak ordu horretan bertan igortzen dion atseden-eskaintza **atzenduz**. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atzendu gabe** (3); **atzendu samarra** (3)

---

atzenengo *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi) izlag* azkenekoa.

Gero, berriro egin zen isiltasuna, **atzenengo** zaldizkoak muinoetara ihesi zihoazelarik odoletan xipatuak, azpiko zaldiak izuaren izuz ileak lazturik. ETC-literatura, saiakera

Salamankara an bere ikasikizunak segitzera joan zan, nora 1527 urte beraren **atzenengo** illetan iritxi zan. ETC-literatura, saiakera

-Halako kalean, **atzenengo** atean -esan zuen alde egin baino lehen. ETC-literatura, saiakera

Gizakiok berariazko zaletasuna dugu gozotasuna: horixe da gure garun edo zerebroan osatzen den lehendabiziko zaporea (gizakion ama-esnea gozoa baita, gainerako animaliena ez bezala) eta galtzen den **atzenengoa.** ETC-prentsa

Arostegui industriala -**atzenengo** orduan aukeratua- ez ezik, hizlariak eta mahaiko batek organismo ofizialetako giroan jarduten dute, besteak lumeroen laboratorio baten. ETC-prentsa

Egia da eguneroko behar handiagoa eta esfortzu jarraitua eskatzen dabela, eta gaur egungo ikasle asko ez dago horretarako prest, **atzenengo** momentuan ikasi eta azterketa gainditzea baino ez dabe gura eta. ETC-prentsa

Inori ez eutsan ardura auzoko ultramarino denda txikiak zarratu ala mertzeriakoak ezin izan baeben euren lokala **atzenengo** bost urtetan pintau. ETC-prentsa

Are koloniak berak ere, hiru gizonek osatutako batzordeek fundatzen zituzten, baina, alta, **atzenengo** garaietako buruzagiek beren kabuz eskuratzen zuten boterea, eta, sarri askotan, hainbat urterako. ETC-entziklopedia

Ondorioz, eta nahiz eta garaituak izan hasiera batean, turkiarrek eragotzi egin zuten inguratuak izatea, eta erretiratu egin ziren estrategikoki Sakarya ibaiaren ekialdera, eta han antolatu zuten **atzenengo** defentsa lerroa. ETC-entziklopedia

---

atzenkor *izond* ahanzkorra.

Eta horixe da jolasa: bere eskuko esanen talka bat, esaldien josi-askatze bat, esanahien elkar-urratzea eta hotsen gurutzatze **atzenkorra**. Iñaki Segurola

Itsu eta **atzenkor** egon behar du batek, edo bi begiak lausoturik izan gutxienez, hizkuntza kontuetan oraingo egoera eta orain dela hogeita hamar bat urtekoa berdintsuak direla pentsatzeko. Pello Salaburu

---

atzera[1] **1** *adlag* atzean dagoen tokira.

Gorputzarekin **atzera** egin du, eta titiak erakutsi dizkizu. Lander Garro

Ez diat gehiago horrela segitzen ahal, urrats bat aurrera, bi urrats **atzera**, ergel bat bezala. Daniel Landart

Atzera begiratu eta Aitor eta Teresa ikusi ditut, oraindik ez diete pasatzen utzi. Harkaitz Cano

Atzera eragin nion gurpil-aulkiari, baina horma ikusezin batekin egin zuen talka. Alberto Ladron Arana

Aurrera eta **atzera** begiratzen dut, eta itxura xelebrea eduki behar dudala iruditzen zait. Pako Aristi

Pasaiako itsas adarraren muturrean dago, **atzera** egitean mareak lehorrean uzten duen leku batean. Koldo Izagirre

Baina gauaz manua jin zitzaukun gudua utzi behar ginuela eta etsaia ohartu gabe **atzera** bideratu ginen. Michel Oronoz

XIX. mendearen bukaeratik **atzera** eta **atzera** dabil eremuari dagokionez. Berria - Mundua

Halere, espaloia gurutzatzera zihoala, buelta eman eta **atzera** dendaren sarrerarako bidea egin zuen. Jasone Osoro

Tarteka **atzera** begiratzen zuen, tarteka niri, eta noski, gertatu behar zuena gertatu zen. Jon Arretxe

2 *adlag* (denborazko testuinguruetan)

1991. urtera egin behar da **atzera**, kasu hau aztertzeko. Berria - Gaiak

Eguzkiaren aitzi joanez gero, berriz, denborari buru eginez, **atzera** gindoazke, "egunak" irabaziz! Jose Angel Irigaray

Gauzak hobeto ulertzeko, ordea, ehun urte egin beharko dugu **atzera**. Patxi Altuna

Hobe da haren inguruan ibiltzea, leku urrunetan, denboran aurrera eta **atzera** eginez. Pako Aristi

Beste hogei urte **atzera** egin eta 1944ean kokatu nintzen, Jose Antonio Mujikaren Itzalak baino berrogei urte lehenago. Iban Zaldua

3 ***atzera-aurrera*** *iz* ik **gorabehera**.

Are gehiago: gure **atzera-aurreretan**, oihuak eta algarak handiagoak izan ziren sartu-irtenean zebilen jende dotorearen artean. Patxi Zubizarreta

Haur honen ipurdian **atzera-aurrera** batzuk egin ondoren, aldatu egingo dugu koadroa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Makina bat **atzera-aurrera** egiteko zeuden oraindik. Anton Garikano

Besoak antxumatuta, **atzera-aurrera** laburrak egiten ditu nire aurrean; urduri jartzen nau. Anjel Lertxundi

Zaun-lantuka egin du hasieran, **atzera-aurrera** urdurietan, baina laster hartu du aterperako bidea, usna hemen, usna han. Jokin Muñoz

Bide asko ibili da harrezkero, egitasmo ugari saiatu dira eta, **atzera-aurrera** guztien ondoren, lortu da helburua. Koldo Zuazo

Halako batean, Angelok ukondoetatik oratu zion gizonari eta **atzera-aurrera** ibili zuen nahiko bortitz. Anjel Lertxundi

Han zebilen **atzera-aurrera** lagun batekin, eta soingainekoaren botoia beheratxo zeukala erakusten zion hark. Xabier Olarra

Han **atzera-aurrera** ibili nintzen, lasai, Mikel ikusiko nuen ziurtasun osoarekin. Patxi Zubizarreta

Urrats luzeak eginez, **atzera-aurrera** zebilen gelan zehar, non halako itolarri garratz bat altxarazten baitzen. Lopez de Arana

Hamar bat lagun **atzera-aurrera** zebiltzan, batzuk lurrean pankarta bat egiten, beste batzuk oholtzan beste pankarta bat eskegitzen. Unai Iturriaga

Galerian tren blindatu bat zebilen **atzera-aurrera**. Juan Garzia

Gurasoenak kaleko azoka batean **atzera-aurrera** ibili eta gero topatu nituen. Xabier Montoia

Garai batean, **atzera-aurrera** ibiliko zen oinez, lasaitzeko. Jon Muñoz

4 ***atzera-aurrera ibili***

Garai batean, **atzera-aurrera** ibiliko zen oinez, lasaitzeko. Jon Muñoz

Gurasoenak kaleko azoka batean **atzera-aurrera** ibili eta gero topatu nituen. Xabier Montoia

Jasotzaileak **atzera-aurrera** ibiltzeko modua daukan sorta haiei: lehiaketetarakoak, diska eta liburuetarakoak, egunkarietarakoak... baldin eta norberak hala erabakita eginak izan badira. Andoni Egaña

5 ***atzera-aurreraka***

Saidek bakarrik utzi nauenetik nire autobusaren inguruan ibili naiz **atzera-aurreraka**, hurbiltzen ziren gainerako pasaiarien itxurari erreparatuz, eta behingoz abiatzeko momentua noiz helduko ote zen galdetuz neure buruari. Jon Arretxe

6 ***atzera-aurrerako***

Haatik, esperantza izpi bat ere banuen, herriaren inguruetan maiatzeko egun haietako jotaldietan eta **atzera-aurrerakoetan** guretarikoen arteko norbaitek herriraino egiterik eduki izan ote zuen, eta alkateari hango berririk ekarri ote zion. Edorta Jimenez

7 ***atzera aurrerako zerra*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Haren zurrunga -hain indartsua non pentsa baitzitekeen, zulagailu batetik gabe, genetikoki manipulatutako makina-erreminta batetik aterea dela, mailu pneumatiko baten eta bulldozer baten sasikumea, **atzera-aurrerako zerra** baten kromosomekin-, haren burrunba gero eta indartsuagoa, nota bakar batekin igorria izatetik urruti. ETC-literatura, saiakera

Atzera-aurrerako zerra elektrikoak hainbat erabilera ditu, hala nola zurezko piezak, PVCzko hodiak, eta abar moztea. ETC-entziklopedia

8 ***atzera begira***

Atzera begira jartzea nahikoa da bi talde hauen arteko partidek askorako eman dutela ohartzeko. Berria - Kirola

Patxi Buldain, **atzera begira** Patxi Buldain margolari nafarra **atzera begira** jarri da, eta **atzera begira** jarriko ditu Iruñeko Gotorlekuko Armen aretora gerturatzen diren ikusleak ere, 77 urteko artista uhartearraren ibilbideari errepasoa egiteko erakusketa zabaldu baitute bertan. Berria - Kultura

Metodo retrospektiboari esker, hizkuntzalariak **atzera begira** dezake mendeetan zehar, eta hortaz baliatuz berreraiki, herri batzuek historian sartu baino lehen hitz egiten zituzten hizkuntzak. Isabel Arrigain

Trenean **atzera begira** joatea bezalakoxea da orain nire bizitza: paisaia, pasatu denean ikusten dut, ez nola sortzen den, nola desagertzen den baizik. Karlos Linazasoro

Haiek irten orduko, izeba Julia sartu zen, eta nora ezean bezala zeharkatu zuen gela, astiro, **atzera**-**begira**, atzean zerbait balu bezala. Irene Aldasoro

Ondorioz, geroarenganako izua berez desagertuko da, eta heriotzaren orduan, **atzera begira**, benetan bizi izan zarela esan ahalko diozu zure buruari. Markos Zapiain

-A, bai? - Arantxak **atzera begira** egin zuen ia bidaia osoa. Fernando Morillo

-Aurrerabideari hesiak jartzea, **atzera begira** bizitzea. Karlos Linazasoro

9 *atzera begirako*[1]

Cita jaialdiak 1945a eta 1966a arteko Mexikoko zientzia fikzioaren **atzera begirakoa** antolatu du. Berria - Kultura

Joan Miroren azken urteotako lanari buruzko **atzera begirakoa** jarri dute Comon, Italian. Berria - Kultura

Ez da, beraz, **atzera begirako** batzar bat soilik. Berria - Harian

Euskalduna Jauregira iritsi eta **atzera begirako** gogoetari ekin zioten. Berria - Ekonomia

Baina **atzera begirako** ispilutik begira jarraitzen du. Koro Navarro

Motherwellen **atzera begirako** erakusketa batean geundela zirudien. Patxi Iturritegi

10 *atzera begirako*[2] *izond* erakusketez edo zikloez mintzatuz, artista baten lanak edo garai jakin batekoak, zaharrenetatik hasita kronologikoki antolaturik biltzen dituena. ik **atzerabegirako**.

Horretaz gain berari buruzko **atzera begirakoa** ere eskainiko dute. Berria - Kultura

Motherwellen **atzera begirako** erakusketa batean geundela zirudien. Patxi Iturritegi

Ezin zaizkio aplikatu erdi aroko kulturari ez eta kultura klasikoari ere, ez bada **atzera begirako** hipotesi baten bidez eta analogia formalen joko edo antzekotasun semantikoen bidez. Xabier Arregi

Euskalduna Jauregira iritsi eta **atzera begirako** gogoetari ekin zioten. Berria - Ekonomia

Zangoetan dardara apur bat sumatzen nuen; **atzera begirako** beldurra, noski, eta, aldi berean, harrotasun zozo halako bat. Juan Garzia

Artistak ez zuen ikararik egin nahi izan, eta ez zuten berriro haren oinek Amerika zapaldu, [...] eta are eta gutxiago bere ospea handiagotu ahala Estatu Batuetako hainbat hiritan antolatu izan ziren museoko **atzera begirakoetara**. Oskar Arana

Baina **atzera begirako** ispilutik begira jarraitzen du. Koro Navarro

Ez al dira izango **atzera begirako** berriz biltze bat, horrela zientzia garaikideek euren iraganaz ilusio bat izateko? Xabier Arregi

11 *atzera begiratu*

Atzera begiratuko zuen? Zein zen atzetik zetorkion pertsona hura? Bide batez, zelatariak ere ibilaldia eteten zuela sumatu zuen. Aritz Gorrotxategi

Historiaren ikuspuntutik, kapitalismo nazionala bere barne-merkatuetara berriz biltzea, **atzera begiratuz** gero, beharrezko urratsa gertatzen da; urrats hori premiazko pasabidea du kapitalismoak, bere mundu osoan nagusitu behar horretan. Koro Navarro

Ez zuten **atzera begiratu**. Edurne Elizondo

Sorbaldaren gainetik **atzera begiratu** zion neskak eta gorroto handiz esan: Irene Aldasoro

Eta, jiratu eta **atzera begiratuz**, berriz, Labargane aldeko kale batzuk sumatu. Txillardegi

Alde egin zuen Honorék, **atzera begiratu** gabe. Joxan Elosegi

Berehala, **atzera begiratu** eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Elizen arteko biblia

Orduan zerbaiten bila hasten zarete, **atzera begiratzen** duzue. Jon Muñoz

Orduan, **atzera begiratu** eta sua zerion gizon bat ikusi zuten: Gaueko izan behar zuen inola ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jendearen jakin-minezko galderen beldur, patioa pauso azkarrez zeharkatu, eta kalera irteten naiz, **atzera begiratzeke**. Anjel Lertxundi

Atzera begiratu, eta harro nago lortu dudanarekin. Berria - Kirola

Eta hantxe izango nauzu, isiltasunak mozten, laburragoak egiten, zer uzten dut azken finean, abiatu, zergatik gabe, **atzera begiratu** gabe, ezer eskuan, argazki erori berriak lez. Berria - Kultura

12 *atzera begiratze*

Euskaldunok **atzera begiratzea** maite dugula eta iraganaz harro sentitzen garela esaten zaigu, eta segidan hau eransten da: "xxxx". Joseba Zulaika

Neurri batean, lasaitasuna hartu nuen, banekien-eta alferrikakoa zela **atzera begiratzea**. Anjel Lertxundi

Handik banindoan, Charlieren gutuna artean poltsikoan nuela, eta **atzera begiratzea** bururatu zitzaidan. Mirentxu Larrañaga

Memoria eta **atzera begiratzea**. Mikel Hernandez Abaitua

Atzera begiratzeak min ematen badu, aurrera begiratu eta kito. Unai Iturriaga

Denboran **atzera begiratzeak** ematen duen zuhurtziarekin, erraza da ebazten, gaur egun, eugenesia-mugimendua inspiratu zuten ideia gehienek ez zutela zentzurik. Juan Garzia

13 *atzera berriz* berriro.

Atzera berriz ikusten badut, ikusi, ttu egingo zioat. Patxi Zubizarreta

Marinari **atzera berriz** piztu zaio zalantza: amona beharbada ez da burutik horren ongi egongo. Patxi Zubizarreta

Gero, **atzera berriz** txabolara zihoala, bere koldarkeria madarikatu zuen behin eta berriro. Martin Anso

Ibilia **atzera berriz** desibiltzea da funtsean bertsolariaren teknika hori. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Irratian hasi nintzenean, ez nuen uste **atzera berriz** irakasle hasiko nintzenik inoiz. Joxerra Garzia

Galdua genuen **atzera berriz** arrastoa. Joxe Austin Arrieta

Sabeth lo, eta nik jakin ez begiak **atzera berriz** inoiz zabalduko ote zituen. Joxe Austin Arrieta

Nik asmo sendoa nuen uda pasatu eta **atzera berriz** Bartzelonara itzultzekoa. Joxerra Garzia

Horrek semea ekarri dio gogora **atzera berriz**. Jokin Muñoz

"Haur jaio eta haur bihurtu" esan ohi da, eta bere biziaren arratsalde beranduan haur bihurtzen da pertsona **atzera berriz**. Iñaki Segurola

14 *atzera bota*

Baina Antiokok ez zituen hartu nahi izan; gainera, aurrez Simoni hitz emandako guztia **atzera bota** zuen eta beraren kontra jarri. Elizen arteko biblia

Herrian gelditzen ziren mutil bakarretakoa zen, eta familiaren pobreziak bere garaian **atzera bota** arren, azkenean ezin izan zien Manuren enkantuei uko egin. Urtzi Urrutikoetxea

Suginak begikeinu alaia egin zidan eta gero palarekin ikatza botatzen hasi zen, lehenbizi **atzera botatzen** zuen, parrillara, gero erdira zirrizarra, eta azken palakadarekin ikatza parrillaren ertzeraino ailegatu zen. Fernando Rey

Afari haren perspektibaren aurrean erreakzio adarbikoitz bat somatzen zuen neure baitan: ez zen gertakari neutroa, erakarri eta **atzera botatzen** ninduen aldi berean, iman bat ipar orratz bati hurbildurik bezala. Juan Garzia

Nik azalpenekin segitu nuen, baina zinemak eta zinismoak ezin bat egin nonbait, eta **atzera bota** zidan ideia. Xabier Mendiguren Elizegi

Ba al dago ikusezin izatea baino harrokeria handiagorik? - galdegin zuen eta eskuekin laztantzen zuen ile adatsa **atzera bota** zuen, estalki lodi baten gisan bizkarrean zabalduz. Joxean Agirre

Iturgaitzi jarritako salaketa **atzera bota** du Gorenak. Berria - Euskal Herria

Gero, berebiziko borroka hasi zen; kanpokoek ahalegin guztian sartu nahi zuten; barrukoek **atzera botatzen** zituzten. Juan Kruz Igerabide

Jesarlekutik paperak jaso eta aterkia **atzera bota** zuen. Pablo Sastre

Burua **atzera bota** eta, besoak zabalik, neure burua jausten utzi nuen. Eskarne Mujika

San Martin kanalaren hegira iristean, so bat **atzera botatzen** nuen atzera jarraitzaile sutsuek beren obra zikinari uko egin ziotela kontu errendatzeko. Itxaro Borda

Testuak **atzera botako** zizkidatelako susmoa bainuen, besterik gabe, gutxieneko kalitaterik ezean. Joan Mari Irigoien

Azkenik, nahiz eta umetan ikusi glandeko larruazala estuegia dela, denborarekin hori zuzendu daiteke, umeak berak pixa egiterakoan edo dutxatzerakoan larruazala **atzera botata**. Luis Elberdin

Bestela... (Eskuineko eskua **atzera bota** du, abiada hartzeko moduan). Itziar Otegi

Ganbarara eraman nituen eta mandoa ere **atzera botatzeko** moduko kiratsa zerien!". Fernando Rey

15 *atzera-buelta* *(orobat **atzerabuelta**)*.

Herio datorrenean, ez din **atzera bueltarik** izango, eta ez datorrelako ere, hura noiz etorriko bizi behar al dut? Anjel Lertxundi

Derrepentean, ordea, Alexek eskuinetarako bidexka hartu zuenean, **atzera bueltarik** ez zegoela ohartu zen. Fernando Morillo

Berandu heldu ziren promesak eta damuak: ja ez zegoen **atzera bueltarik**. Karlos Linazasoro

Eta orain, horrek **atzerabueltarik** ez duen honetan, berriro ere sentimenduak nahas-mahas eta borborka ditut. Patxi Zubizarreta

Mendiaren baldintzak txarrak badira onena **atzerabuelta** egitea da. Berria - Euskal Herria

Orain badakizu zeharkatzen den ate bakoitzak ez duela **atzera-bueltarik**, ezinezko bihurtzen duela gainerako ateak zeharkatzea, aukera bakoitzak bere prezioa duela eta itzulezina dela. Lourdes Oñederra

Erabakiko dugu, ikusiko duzue, ez dago **atzerabueltarik** prozesu honetan. Berria - Harian

Baina, zailtasunak dauden arren, etenik gabeko eta **atzera-bueltarik** gabeko prozesua da dinamika inperialarena. Berria - Kultura

Aferak ez zuen gehiago **atzera bueltarik**: haren eskua ene hankartean pausaturik zegoen. Aingeru Epaltza

16 *atzera bueltarik ez izan*

Beste eredu bat nahi dugu, eta **atzera bueltarik ez da**. Berria - Harian

17 *atzera bueltarik gabeko*

-Habitatak suntsitzea animali eta landare espezie askoren desagerpena eragiten ari da; galera horiek **atzera bueltarik gabekoak** dira, eta ekosistemetan izugarrizko hondaketa dakarte. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Uste dut jabetzen nintzela **atzera bueltarik gabeko** bide batean sartzeko arriskuaz, uste dut konturatzen nintzela gurasoen premia izango nuela aurrera egiteko. Anjel Lertxundi

Gainera **atzera bueltarik gabeko** hautua izan zen. Berria - Kultura

Planeta **atzera bueltarik gabeko** puntu batera iritsi dela azaldu du bertan. Berria - Gaiak

18 *atzera egin* 1 atzerantz joan. ik **gibel 20**.

Berrogei urte **atzera egin** eta 60 urtetik gorako 11 bertsolarik irudikatuko dute 60ko hamarkadako bertso giroa. Berria - Kultura

Badirudi **atzera egiten** jarraitzen dutela talibanek, eta, oraingoz behintzat, yankiek Iran bakean utziko dutela. Jon Arretxe

Ez du erraza behar laurogei urte **atzera egiteak**. Arantxa Iturbe

Nerabetarako zubi ahulean **atzera egin** zuen atzera ere umezaroko kontuetan babestuz, buruko min haiei aterik ez zabaltzeko, denboraren eta biologiaren aurka alferreko borrokan. Urtzi Urrutikoeetxea

Berriro aurrera jarraitu zenuen nire aldetik eta berriro berehala **atzera egin** ere: ni dardarka, pozez gainezka, hitz egingo ote zenidan erreguka. Eduardo Matauko

Hobe da haren inguruan ibiltzea, leku urrunetan, denboran aurrera eta **atzera eginez**. Pako Aristi

Ia-ia atzetik joatekotan egon da, baina azkenean ez da ausartu: ez luke parera ailegatu eta **atzera egin** nahi, lotsaz edo beldurrez beterik. Iban Zaldua

Pasaiako itsas adarraren muturrean dago, **atzera egitean** mareak lehorrean uzten duen leku batean. Koldo Izagirre

Nabala ahurrean ikusi ninduela, izuaren izuaz bezala, Mairosek urrats bat **atzera egin** zuen. Itxaro Borda

Barrabiletaraino sarturik, han barruan sutsu mugitzen denean, eta gero, zakilbururaino **atzera eginez**, berriro ileetaraino hondoratzen zaigunean! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

19 irud/hed

Arrazoi horiengatik enpresaburu askok **atzera egiten** dutela ohartarazi dute txostenean. Berria - Gaiak

Santxok hori ez dela kristau jator baten jarrera esango dio eta Don Kijotek **atzera egingo** du bere hasierako asmoak baztertu ondoren. Patxi Ezkiaga

Askotan kritikatu dugu irudikapena absolutua eta objektiboa izan daitekeelako ideia hori, eta orain ez dugu **atzera egingo** puntu honetan, bestela baizik. Josu Zabaleta

Dena dela, Bizkaiko apaiz gehienak ez omen ziren iritzi horretakoak, eta Mogelek ere **atzera egin** zuen, bere inguruan piztutako iskanbila ikusita. Koldo Zuazo

-Historia laburra agindu dut -hasi zen Golubtxik-, baina ikusten dut hasieran behintzat franko **atzera egin** behar dudala, eta beraz, arren, eskatzen dizuet pazientzia hartzeko. Matías Múgica

Ai, amatxo, **atzera egin** nuen tentazioaren aurreko izuak jotakoaren gisa, esku baldarrez maleta ireki, hau erantzi, hori erantzi, galtzontziloak erantzi... Joxean Sagaztizabal

20 *atzera eragin* atzeratzera behartu. ik **atzerarazi**.

Aurre egin zieten etsaien gudarosteei eta **atzera eragin** arerioei. Elizen arteko biblia

Koloreak **atzera eragiten** zidan bereziki. Joxan Elosegi

Entzule bati ez zaio gustatuko halako bertsolarik daraman belarritakoa eta beste bati **atzera eragingo** dio beste bertsolari baten trajeak. Andoni Egaña

Zuk zeuk ere jaso duzu tratamendu hori berori, eta behin buruan zer edo zer sartzen zaionean, hari **atzera eragitea** da etxe bat bultzaka eraitsi nahi izatea bezala. Oskar Arana

Egutxi agureak kopeta bularren arteko hutsunean bermatzea pentsatu zuen, baina aurpegia hurbildu zuenean, usainak **atzera eragin** zion. Ibon Uribarri

Baina ni itsutua nengoen, eta bidean jartzen zizkidatèn oztopo guztiak, **atzera eragin** beharrean, kitzikagarri gertatzen zitzaizkidan, aurrera eta aurrera egiteko. Joan Mari Irigoien

Arrainaren usainak **atzera eragin** zion demonioari eta Egiptoko bazterreraino egin zuen ihes. Jose Antonio Mujika

Jakin beharko luke, adinak **atzera eragin** izan balio, ez zatekeela egongo bizi izan dutena bezalako erakarmenik. Hasier Etxeberria

21 *atzera-eragingarri* *izond*

Ekitate fikzio batez, ezkontzari indar atzera-**eragingarria** ematen diote. Oro har, legeak ez dira atzera-**eragingarriak**. bazuen nolabaiteko esperantza histeria besterik ez izateko, atzera-**eragingarria** baitzatekeen, hala izatera. Andres Urrutia

22 *atzera eskuratzeko eskubide* *(corpusean ez dago; ETCn **220** agerraldi)*

Gas Natural enpresak epe jakin batean proiektua aurrera eramateko urratsik egin ezean, lurrak **atzera eskuratzeko eskubidea** izango luke Sprilurrek, eta Gas Naturalek onartu egin zuen. ETC-prentsa

Eta honako gai hauek arautzen ditu: gordailuak, lehentasunez erosteko eta **atzera eskuratzeko eskubideak**, desjabetzeak eta erreprodukzioak. ETC-prentsa

Eta etxebizitzak erostea posible denean, eroslehentasun eta **atzera-eskuratzeko eskubideak** aplika ditzatela (10/2010 Foru Legeko 49. artikulua). ETC-prentsa

IV. tituluan, **atzera-eskuratzeko eskubideari** eta lehenespenez eskuratzeko beste eskubideei buruzko kontuak barneratu dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

V. kapitulua museoetako funtsei buruzkoa da, eta gai hauek arautzen ditu: gordailatzeak, lehentasunez erosteko eta **atzera eskuratzeko eskubideak**, desjabetzeak, erreprodukzioak eta zaharberritzeak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrela, beste nazio batzuen ereduari ekinez, jabe mugakideei **atzera-eskuratzeko eskubidea** eman zitzaien, euren ondoko lurrak bi hektareakoak edo txikiagoak zirenean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pisu edo lokala besterentzen bada, gainerako pisu edo lokalen jabeek, titulu horren bidez bakarrik, ez dute eroslehentasun - eskubiderik izango, ezta **atzera-eskuratzeko eskubiderik** ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrela, beste nazio batzuen ereduari ekinez, jabe mugakideei **atzera-eskuratzeko eskubidea** eman zitzaien, euren ondoko lurrak bi hektareakoak edo txikiagoak zirenean. ETC-zientzia, zuzenbidea

23 *atzera eta aurrera* 1 *iz* atzeranzko eta aurreranzko, alde baterako eta besterako aldaketa.

Inguruko ontzietako bela zuriek, berriz, mugimendu bateratua sortzen zuten, **atzera eta aurrera** astiroan, ilargi zilartsuaren aurrez aurre, jainkoren baten idoloa gurtzen ari ziren dantzari. Anjel Lertxundi

Jendea **atzera eta aurrera** pasatzen zen haien konpartimentuko ate ondotik. Iñaki Mendiguren

Espaloian gero eta jende gehiago zegoen; makina bat gizon eta emakume esnatu eta **atzera eta aurrera** zebilen salgaien artean, batekin topo, bestearekin solas, hango hari deika. Karlos Zabala

Bera lanean jarduna zen, neskatilatatik: aitari laguntzen ibilia zen, herri txiki bateko denda batean enplegatua, eta orduan ere Turinen barrena **atzera eta aurrera** ibiltzen zen bizikletaz, mandatari eta ordain-agiri biltzaile. Juan Garzia

Horrela, egunean zehar umearen buruan **atzera eta aurrera** ibili diren pentsamenduak leku egokian jartzen dituzte, eta hurrengo goizean gogoeta guztiak ordenatuta egongo dira. Julen Gabiria

Behingoz bakarrik, tristetxoa iruditu zaidan hirian **atzera eta aurrera** ibili naiz, harik eta Hard Rock jatetxe horietako bat topatu dudan arte. Patxi Zubizarreta

Bitartean autobusez ibili ginen biok udazkenean, **atzera eta aurrera**, elkar ikusteko. Aitor Arana

Nire ahoa **atzera eta aurrera** zebilen errimikoki. Juan Martin Elexpuru

24 ***atzera gelditu*** (ezezko esaldietan) kikildu, adorea galdu.

Zelaatzea ukitu gabe airean pasa dik, eta zebra bat balitz baino ere arinago zeramak bere Jak-moxala; eta ez zaizkiok **atzera gelditzen** bere neskameak; haizea bezala zihoazek denak. Patxi Ezkiaga

Adierazpenetan eta harropuzkerietan ez da **atzera gelditzen**. Berria - Kirola

25 ***atzera geratu*** atzera gelditu.

Ondo trebatu nintzen kalean, eta tailerretan ere denek zekiten ez nintzela **atzera geratzekoa**. Jon Maia

Kartzeleroak ez du **atzera geratu** nahi nonbait eta parean jarri zaigu. Jokin Urain

26 ***atzera-martxa*** *(**6** agerraldi, **4** liburu eta artikulu **1**ean)* atzerako martxa.

Atzera-martxa sartu, eta egin genituen atzera ehun metroak. Inazio Mujika Iraola

Autoa **atzera martxan** itzuli zen senide eta lagunengana, eta hilerrira abiatu ziren. Berria - Harian

27 ***atzera-puntada*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

"Honek **atzera-puntada** bat behar du?", edo beste edozein gairi buruz: "Badakizu zuk ihes egin zenuen egunean ama batek hirukiak izan zituela ospitalean?". ETC-literatura, saiakera

Postalean hari zuriarekin jositako argazkia dago, josteko makinarekin **atzera-puntada** zehatzak erabiliz. ETC-literatura, saiakera

Bilboko kaleetatik paseatzen zebilenean eta horren ondorioz izkinetan mahukak eta eskoteak ikusten zituela, zapi muturrak teilatu artean, espaloietan gaindi **atzera-puntadaz** eta albainuz betetako gainazalak. ETC-literatura, saiakera

Oheari **atzera-puntada** zarratuz josita gelditu balitz lez. ETC-literatura, saiakera

Prakek **atzera-puntadaz** egin marrak zeuzkaten. ETC-literatura, saiakera

Duela dozenaka urte idatzitakoa gogoan izan dut oraingoan ere: **Atzera puntada**: puntada berria emateko iragan puntadaren zuloan sartu jostorratza". ETC-prentsa

Ilbindu-k josi esan nahi du, eta trespunte-k, berriz, eule lanean **atzera puntada** bat ematea. ETC-prentsa

Lehenik, zetazko paper batean egiten dut eredua, gero, txapel gainean jarri, eta **atzera puntada** bat emateko. ETC-prentsa

28 ***atzerago***

Atzetik, zubietarrek eramandako ponyak joan ziren, eta, zertxobait **atzerago** hamar bat haur pankarta bati eusten: Ingurugiro garbi batengatik leloa irakur zitekeen, marrazki batzuekin apainduta. Berria - Euskal Herria

Aitzitik, hango azken lurmuturra karrakaren txopa baino **atzerago** utzi ostean lema istriborrera osorik sartuz branka ababorrera zehatz artezturik, hegoaldera jo genuen. Edorta Jimenez

Ingurune menditsua gero eta **atzerago** utzirik, zikoinak aise eta eroso egiten du Gaztelan aurrera. Patxi Zubizarreta

Orrialde batzuk **atzerago** gosaltzeko puntuan utzia genuen erradiologoarengana itzuliko gara orain. Irene Aldasoro

Beroki lodi batean bildutako andre baten atzean ikusi du, lerro pare bat **atzerago** jarrita. Urtzi Urrutikoeetxea

Gödel pixka bat **atzerago** gelditu zen, gainontzekoak urduritasunez aztertuz. Fernando Morillo

Metroan, Josebak eta Gregoryk hartu zutena baino bagoi bat **atzerago** jarri zen eta geltoki bakoitzean ate ertzetik egiten zuen jaisten zirenen zelata. Iñaki Zabaleta

2 *(denborazko testuinguruetan)* Aspaldiko itsasontzi bat zen, banderarik gabea, mende bat **atzerago** espainiarrek Ameriketarainoko bidaian erabili izan zuten haien tankerakoa. Felipe Juaristi

Andoni etorri zen erredakziora, aste batzuk **atzerago**, eta ikastaro baten berri eman zidan. Lander Garro

Orobat, zenbat eta **atzerago** egin historian, orduan eta hobeto ulertu ahal izango dugu gure jokabide sexualen ereduen bilakaera. Luis Elberdin

29 ***aurrekoz atzera*** adlag

Eta gero komunikazio bulegora pozik sartu, aulkia **aurrekoz** atzera jarrita eseri eta esan zuen. Fernando Rey

-Elizkizun batean, omenaldi batean, agurra egiterako orduan... nahi beste astia izango du bertsoa **aurrekoz** atzera eta atzekoz aurrera pentsatzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ezin ahaztu, alabaina, hizkuntz unitate bat osatzen duten elementuak beste hurrenkera batean ordenatzeko eskueran ditugun aukeretako bat baino ez dela **aurrekoz** atzera zegoena atzekoz aurrera jartzea. Iñaki Arranz

30 ***ez atzera (eta) ez aurrera*** mugitu ezinik, atzera edo aurrera mugitu ezinik. ik**aurrera 12**.

Ordu laurden eztabaidan eman dugu koadrilakook, **ez atzera** eta ez aurrera. Xabier Etxabe

Atean gelditu nintzen, ez aurrera **ez atzera**, ez nekien-eta zer egin zer esan. Anjel Lertxundi

Esaldi baten erdian nengoen, ez aurrera eta **ez atzera**, eta gizon horrek jarraipena xuxurlatu zidan. Pako Aristi

Eta pauso bat eman gabe, **ez atzera** ez aurrera, han bertatik hasten zen kantuan gaia entzun eta berehala. Andoni Egaña

Artean Kakanarru izaten jarraitzen nuen, ez aurrera eta **ez atzera**, eta haiek beren kasa hazten ari ziren, nigandik urrun. Mirentxu Larrañaga

Ezin du **ez atzera** eta ez aurrera jo. Joan Mari Lekuona

Alde batetik, pentsatu zuen, ez zitzaion asko axola, ikusten baitzuen kasu hartan **ez atzera** eta ez aurrera zebilela. Joxemari Iturralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

atzera aurrera ibili (9); **atzera aurrera ibiltzen** (7); **atzera aurrerak** (10); **atzera aurrerako** (10); **atzera begira jarri** (7); **atzera begira jarrita** (6); **atzera begira jartzen** (6); **atzera begirako erakusketa** (16); **atzera begirakoak** (7); **atzera begirakoan** (7); **atzera begiratu du** (8); **atzera begiratu gabe** (32); **atzera begiratu nahi** (7); **atzera begiratu nuen** (6); **atzera begiratu zuen** (40); **atzera begiratuko** (6); **atzera begiratuta** (19); **atzera begiratuz gero** (7); **atzera begiratzea** (13); **atzera begiratzean** (8); **atzera begiratzeko** (19); **atzera berriro** (20); **atzera bidali** (7); **atzera biderik** (8); **atzera bildu** (8); **atzera bota ditu** (24); **atzera bota dituzte** (9); **atzera bota du** (102); **atzera bota dute** (21); **atzera bota izana** (16); **atzera bota ondoren** (8); **atzera bota ostean** (9); **atzera bota zituen** (18); **atzera bota zituzten** (19); **atzera bota zuen** (153); **atzera bota zuten** (48); **atzera botako** (42); **atzera botata** (12); **atzera botatako** (8); **atzera botatzea erabaki** (11); **atzera botatzeko eskatu** (22); **atzera botatzeko eskatzen** (6); **atzera botatzen badu** (7); **atzera botaz** (9); **atzera bueltarik ez** (29); **atzera bueltarik gabeko** (8); **atzera bueltarik izan** (7); **atzera bueltarik izango** (6); **atzera egin behar** (63); **atzera egin beharko** (7); **atzera egin beharra** (7); **atzera egin beharrean** (7); **atzera egin du** (60); **atzera egin duela** (8); **atzera egin dut** (6); **atzera egin dute** (14); **atzera egin dutela** (6); **atzera egin ez** (8); **atzera egin gabe** (7); **atzera egin genuen** (6); **atzera egin nahi** (21); **atzera egin nuen** (21); **atzera egin zuen** (165); **atzera egin zuten** (55); **atzera eginarazi** (14); **atzera eginda** (12); **atzera eginen** (6); **atzera eginez gero** (11); **atzera egingo du** (10); **atzera eginik** (8); **atzera egitea da** (7); **atzera egiteak** (7); **atzera egitean** (6); **atzera egiteko eskatu** (7); **atzera egiten ari** (8); **atzera egiten du** (17); **atzera egiten ez** (9); **atzera egiten zuen** (10); **atzera egitera** (15); **atzera egiterik ez** (12); **atzera eman** (11); **atzera eragin zion** (7); **atzera eraman** (23); **atzera erori** (6); **atzera eseri** (10); **atzera eta aurrera** (169); **atzera eta ez** (16); **atzera etorri** (11); **atzera etxera** (15); **atzera ez aurrera** (41); **atzera gelditu** (11); **atzera gelditzen** (9); **atzera geratu zen** (7); **atzera geratzen** (9); **atzera ibili** (7); **atzera irten** (6); **atzera itxi** (8); **atzera itzuli zen** (7); **atzera itzultzeko** (10); **atzera itzultzen** (13); **atzera jiratu** (19); **atzera jo zuen** (7); **atzera jo zuten** (7); **atzera joan zen** (9); **atzera jotzeko** (6); **atzera jotzen** (6); **atzera joz** (7); **atzera lehengo** (11); **atzera pauso** (7); **atzera salto** (6); **atzera sartu zen** (6); **atzera utzi** (15)

aurrean atzera (9); **aurrera atzera** (14); **aurrera edo atzera** (14); **aurrera eta atzera** (95); **aurrera ez atzera** (41); **aurretik atzera** (6); **auzitegi gorenak atzera** (13); **auzitegiak atzera bota** (13); **azkenean atzera egin** (6); **babes helegitea atzera** (6); **baina atzera bota** (8); **baina atzera egin** (23); **baina azkenean atzera** (6); **batean atzera** (15); **batek atzera bota** (7); **baten atzera** (15); **batez atzera** (10); **batzordeak atzera bota** (6); **batzuk atzera** (17); **begirada atzera** (6); **behar da atzera** (9); **bera atzera** (6); **berak atzera** (8); **berehala atzera** (8); **berriz atzera** (16); **bidean atzera egin** (6); **burua atzera bota** (9); **buruzko atzera begirako** (12); **buruzko atzera begirakoa** (8); **dago atzera bueltarik** (12); **dela atzera** (10); **denboran atzera egin** (9); **dira atzera** (25); **ditu atzera** (11); **du atzera bueltarik** (17); **du atzera egin** (7); **duela atzera bueltarik** (11); **dutela atzera** (7); **duzu atzera** (7); **egin atzera** (10); **egin du atzera** (13); **egin eta atzera** (8); **egin zituen atzera** (7); **egin zuen atzera** (24); **egoerak atzera**

(7); **epaileak atzera bota** (6); **erabakia atzera bota** (12); **ere atzera bota** (12); **ere atzera egin** (9); **eskaera atzera bota** (23); **eskaera atzera botatzeko** (9); **eskaera guztiak atzera** (7); **eskaerak atzera** (7); **etengabe atzera** (6); **ez atzera ez** (43); **ez da atzera** (7); **ez dago atzera** (23); **ez du atzera** (41); **ez duela atzera** (19); **ez dugu atzera** (7); **ez dut atzera** (7); **ez dute atzera** (8); **ez nuen atzera** (7); **ez zegoen atzera** (11); **ez zuen atzera** (27)

gainetik atzera begiratu (6); **gehiago atzera** (6); **genuen atzera** (6); **gero atzera egin** (8); **gobernuak atzera** (9); **gorenak atzera bota** (15); **guztiak atzera bota** (15); **haiek atzera** (7); **handik atzera** (7); **harryk atzera egin** (8); **hartan atzera** (6); **hartu eta atzera** (7); **hautagaitza atzera** (7); **heldu eta atzera** (10); **helegitea atzera bota** (29); **helegiteak atzera** (6); **historian atzera** (8); **honek atzera** (6); **hori atzera** (21); **horiek atzera** (6); **hura atzera** (7); **ilea atzera** (7); **inpugnazioa atzera** (7); **jarritako helegitea atzera** (8); **jaurlaritzak atzera** (7); **konstituzionalak atzera bota** (6); **kontratua atzera** (6); **legea atzera** (8); **legebiltzarrak atzera bota** (10); **lehen atzera** (6); **mahaiak atzera bota** (7); **mozioa atzera bota** (6); **nagusiak atzera** (6); **naiz atzera** (9); **nik atzera** (12); **nintzen atzera** (12); **nion atzera** (6); **onartu edo atzera** (6); **ondoren atzera** (7); **orain atzera** (20); **oso atzera** (18); **osoko zuzenketak atzera** (10); **pauso atzera** (7); **pauso bat atzera** (15); **pixka bat atzera** (9); **plana atzera** (9); **proiektua atzera** (9); **proposamena atzera bota** (16); **proposamena atzera botatzea** (7); **proposamena atzera botatzeko** (6); **prozesuak atzera bueltarik** (6); **salaketa atzera** (8); **urrats bat atzera** (10); **urte atzera egin** (8); **zebilen atzera** (7); **zen atzera** (60); **zion atzera** (10); **ziren atzera** (12); **zuela atzera** (7); **zuen atzera egin** (15); **zuten atzera** (25); **zuzenketa atzera** (8); **zuzenketak atzera bota** (13)

askoz atzerago (6); **atzerago dago** (6); **atzerago gelditu** (6); **atzerago geratu** (9); **atzerago zegoen** (6); **baino atzerago** (22); **gero eta atzerago** (6); **metro batzuk atzerago** (6); **pixka bat atzerago** (8)

---

atzera[2] **1** *adlag* berriz, ostera, beste behin.

Oraindik ez gintuztela derrotatu, poster bat osatu genuen egunkari txatalez, edukiko zutela **atzera** ere gure berri, plaza errearen argazkiekin. Koldo Izagirre

Norbaitek, auskalo non esnatzerakoan, **atzera** berriz auskalo non, ametsetan seguruena, ikusitako dinosauro bera ikusi zuenekoa, alegia. Josetxo Azkona

Hainbat aldiz ikusitako erretratuak dira, bolada baten ostean berriz hartu eta **atzera** harrapatzen gaituztenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Halere, espaloia gurutzatzera zihoala, buelta eman eta **atzera** dendaren sarrerarako bidea egin zuen. Jasone Osoro

Hildakoak, ordea, etorri egiten dituk **atzera** ; itsasoak ez ditik hartu nahi. Eskarne Mujika

Zigorra guztiz betetzeke, **atzera** ere Eibarren izan behar zuen Jazinto Rivasek gerra amaitu orduko. Iñigo Aranbarri

Oraingoz osoki inposiblea, ordea, mendebaleko pentsamendu razionala bere erlatibismotik sendatzeko, **atzera** metafisika platonikora itzultzeak dirudi. Joxe Azurmendi

Line hartako lanek atzerapenak omen zekartzaten **atzera** ere. Lutxo Egia

Une batez, hanka-besoei eragin eta ur gainera ateratzea lortu nuen, baina Olatu baten O itzelak ur azpira eraman ninduen **atzera** , Pixtien P txiki eta handiz betetako inguru batera. Bernardo Atxaga

2 ***atzera berriz*** berriz, ostera.

Atzera berriz politika protekzionistei heltzea pentsatzen ari dela ere ohartarazi zuen. Berria - Ekonomia

Eskerrak eman nizkion, **atzera berriz** paperok karteran sartzen nituela, itxura denez nik neuk ere adeitsuegi, berehalaxe baliatu baitzen egokiera hartaz niri galdezka jarraitzeko. Joxe Austin Arrieta

Horrek semea ekarri dio gogora **atzera berriz** . Jokin Muñoz

Behin betiko zurekin hitz egin beharra neukan; gero **atzera berriz** nire ilunpera itzuliko naiz mutu, zure ondoan beti mutu egon naizen bezala. Eduardo Matauko

Andrearen aurpegitik arrautza formako buru txikira eta **atzera berriz** andrearen aurpegira zerabiltzan gizonak begiak. Irene Aldasoro

Bata lehenik eta bestea ondoren, ohetik jaiki eta loaldiaren ondoko pixa erreka egin genuen, **atzera berriz** ohera itzultzeko. Aitor Arana

Gero, **atzera berriz** txabolara zihoala, bere koldarkeria madarikatu zuen behin eta berriro. Martin Anso

---

atzerabegirako **1** *izlag/iz* artista baten lanak edo garai jakin batekoak, zaharrenetatik hasi eta kronologikoki antolaturik, biltzen dituen erakusketa edo zikloa. ik **atzera**[1] **4**.

Atzerabegirako moduan antolatuta badago ere, azken garaiko lan asko aurkeztu ditu artistak, eta gainera hasi berria duen bidea erakustera ere ausartu da. Berria - Kultura

Bestetik, artista bakoitzaren **atzerabegirako** txikia prestatu dute, garai eta teknika ezberdineko erakuslerekin eta bakoitzaren erretratu batekin. Berria - Kultura

2 *izond* atzeraeragina duena; atzeraeraginarena, atzeraeraginari dagokiona. ik **atzeraeraginezko**.

Izan ere, epez kanpo bada ere langileek banan bana sina dezakete hitzarmen berria baina **atzerabegirakoa** galduko dute. Berria - Ekonomia

---

atzerabide **1** *iz* atzera egiteko modua.

Gauzak oso urrun joan dituk, eta ez zagok **atzerabiderik** . Juan Kruz Igerabide

Atzerabidea jada ezinezko, batasunaren integrazio politiko gehiago eta Estatu-nazioen hutsaltasuna areago, ez da gelditzen beste irtenbiderik. Joseba Zulaika

oztopoa, eragozgarria.

Eta urrunera bidalitako konpainien **atzerabidea** arriskutsua litzateke, eraso oldarkorra gertatuz gero. Agustin Otsoa

Zenbat eta argiago ageri zaion atsekabetuari egoerak **atzerabiderik** ez duela, pentsatu zuen, antza, lagunak, orduan eta lehenago aurkituko du kontsolamenduaren ardoa. Imanol Zurutuza

Eta galtzen bada, batzuetan ez da **atzerabiderik** izaten. Xabier Etxabe

Eta okerrena da emana izan zaigun hala-moduzko askatasun horren erabilera okerrak eraman gaituela **atzerabiderik** eta konponbiderik gabeko egoitza horretara. Harkaitz Cano

Segundo batean isilik gelditu da, bere idi gisatuaren erdia eta ogi xerra oso bat garbiro eta **atzerabiderik** gabe desagerrarazteko denbora. Monika Etxebarria

---

atzerabuelta ik **atzera**[1] **5**.

---

atzeraelikadura *iz* atzeraragina, berrelikadura.

Gure oreka-gaitasuna mantentzeko beharrezkoak diren hainbat **atzeraelikadura** - eta automatizazio-eredu landu eta xehe izan ez balira, ezinezko zatekeen zutikako jarrera. Irene Aldasoro

Funtzioa, hortaz, horren arabera definituko da eta kontuan hartuko ditu **atzeraelikadura** -prozesuak nola eratzen duen portaera ekoizteko behar den osagaiaren egitura (edo funtzioa). Askoren artean

---

atzeraeragin **1** *iz* aurretik gertatu den zerbaitetan eragitea; bereziki, arau baten eragina araua indarrean jarri aurretiko egoera edo gertaera bati hedatzea.

Helegitearen gaineko ebazpena legearen kontrakoa balitz ere, "horrek ez luke izango **atzeraeraginik** ". Berria - Euskal Herria

Hiru boto kontrakoek diote legeak **atzeraeraginez** ezartzea ezinezkoa dela. Berria - Harian

2 ***atzeraeragin positibo*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***5*** *agerraldi)*

Atzeraeragin positiboa edo berrelikadura positiboa, atzeraeraginaren mekanismo nagusietako bat da, honetan sistema baten efektuek edo irteerek sarrerako metatze-

efektuak eragiten dituzte, aldiz, atzeraragite negatiboan irteerak sarrerako metatze-efektuak eragiten ditu. ETC-entziklopedia

Naturaren hainbat sistemetan **atzeraeragin positiboa** antzeman daiteke, tartean klima eta biosfera, bai eta gizakiak sortutako sistemetan ere, tartean ekonomia, gizartea eta zirkuitu elektrikoak. ETC-prentsa

---

atzeraeraginezko 1 *izond* atzeraeragina duena; atzeraeraginarena, atzeraeraginari dagokiona.

Espainiako Legediak ez du **atzeraeraginezko** printzipioa onartzen, lege berriak akusatuari kalte egiten dionean behintzat. Berria - Harian

Hortaz, legearen **atzeraeraginezko** irakurketa egin du Fiskaltzak, eta hori Frantziako Zuzenbide Penalaren kontrakoa da erabat! Berria - Mundua

2 *atzeraeraginezko izaera* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Besteak beste, ez du begi onez ikusten alderdi bat legez kanpo uzteko eskaera 50 diputatu edota senatarik egin ahal izatea eta ezta legeak **atzeraeraginezko izaera** izatea ere. ETC-prentsa

Izan ere, ez dauka inolako asmorik aztertu behar diren hitzarmenen soldaten **atzeraeraginezko izaera** onartzeko. ETC-prentsa

Horrekin batera, beharrezkoa izango da tratamendu-programan edo norbere burua laguntzeko taldean bi hilabetez aritzea eta, laguntza emanez gero, **atzeraeraginezko izaera** izango du. ETC-prentsa

Nafarroak, berriz, orain arteko sei hilabeteko epeari eutsiko dio, "eta **atzeraeraginezko izaera** izanen du, Espainiako Gobernuaren legean ez bezala". ETC-prentsa

Iragan astean parlamentu israeldarrak Palestinan eraikitako eta ilegaltzat hartzen diren kokagune guztiak **atzeraeraginezko izaeraz** legeztatzen dituen legerako bere aurretiazko onespena eman du. ETC-prentsa

Aspaldiko borroka da zor-kitatzea, eta lorpen handia litzateke legez hala zehaztea, baina lortuz gero ere ez dirudi **atzeraeraginezko izaera** izango duenik, aurka agertu baita Kongresuaren gehiengoa. ETC-prentsa

Oinarri-legeak ez du **atzeraeraginezko izaera** duten arauak ematekoahalmenik ematerik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Espainiako gobernuak bere egin zuen oligopolioak adierazitako teoria eta, 2012an, **atzeraeraginezko izaerarekin**, pizgarri-sistema amaitutzat eman zuen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ez zen gerra garaiko jardun militarra soilik epaitzen, gerra aurreko lan eta ideologia politikoa ere bai, bere **atzeraeraginezko izaerak** 1934ko urrira arte eramaten zuelako zigorraldia. ETC-entziklopedia

3 *atzeraeraginezko ondorio* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Etenaldi hau salerosketen berpiztearekin, honek industrian nahiz etekinetan dituen **atzeraeraginezko ondorioen** bitartez, luze atzeratuko da ordea. ETC-literatura, saiakera

Egia batek **atzeraeraginezko ondorioak** sortzen ditu bera baino lehenago sortutako beste egia batzuetan. ETC-literatura, saiakera

Candido Saseta gudari omendu berria ere eroriko da EAE-ANV legez kanporatzen dutenean, **atzeraeraginezko ondorioz**. ETC-prentsa

Gorrotozko erabakiek, pertsonari askatasuna ukatzeak adibidez, ezin dute **atzeraeraginezko ondoriorik** izan. ETC-prentsa

Bi aldiz bakarrik aurkeztu badaiteke ere presidenteak argi utzi du legeak ez duela **atzeraeraginezko ondoriorik**. ETC-prentsa

Baina Parlamentuak erabaki zuen lege horrek **atzeraeraginezko ondorioa** zuela, eta horregatik, Viktoria izendatu zuten ofizialki printzesa oinorde. ETC-entziklopedia

---

atzeraeskuratu, atzeraeskuratu, atzeraeskuratzen *(corpusean ez dago; ETCn **74** agerraldi)* du *ad* norbaiti bere ondasunen bat itzuli.

Saltzaileak atzera-eskuratzeko eskubidea egikarituz gero, hipotekak iraun egiten du zuzenean, **atzeraeskuraturiko** ondasunen gain. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ez da eroslehentasun-eskubiderik edo **atzeraeskuratzeko** eskubiderik egongo, errentatzaileak errentapeko etxebizitza saltzen duenean ondasun higiezin horren jabetzan dituen gainerako etxebizitza edo lokalekin batera, edo jabe batek baino gehiagok ondasun higiezineko etxebizitza eta lokal guztiak erosle bati saltzen dizkiotenean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pisu edo lokala besterentzen bada, gainerako pisu edo lokalen jabeek, titulu horren bidez bakarrik, ez dute eroslehentasun-eskubiderik izango, ezta **atzeraeskuratzeko** eskubiderik ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erkidegokoa ez den norbaiti besterentzen bazaio, hilabeteko epea dute gainerakoek, besterentzearen berri izan dutenetik, **atzeraeskuratzeko** eskubidea egikaritzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Saltzaileak ezin izango du **atzeraeskuratzeko** eskubidea erabili, erosleari salmentaren prezioa ordaindu gabe, eta, horrez gain: ETC-zientzia, zuzenbidea

Salbuespenez, batza berriz biltzen bada eta, batza horretan, gutxienez, titularren 100eko 80 ordezkatzen duten jabe gehienak ados badaude, eroslehentasun-eskubide eta **atzeraeskuratzeko** eskubide horiei eutsi ahal zaie, erkidegoaren kide direnen mesederako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Besterentzeaz geroztik, gauza testamentugilearen jabarira itzultzen bada kontratuaren deuseztasunaren ondorioz edo bestelako arrazoien ondorioz, egitate horren ostean legatuak ez du indarrik izango, salbu eta berreskuraketa **atzeraeskuratzeko** itunaren ondorioz gauzatzen denean. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

atzeraeskuratze *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)* *iz* norbaiti bere ondasunen bat itzultzea.

Prezioa zainpean uztea legez edo kontratu bidez galdatuz gero, **atzeraeskuratzearen** mendeko gauzaren prezio hori zainpean jarri dela egiaztatzeko agiria, baldin eta prezio hori ezaguna bada, edo prezioa jakitera zainpean uztea bermatuko duen kauzioa egiaztatzeko agiria. ETC-zientzia, zuzenbidea

XI. kapituluan, hirigintza-eroslehentasun eta **atzeraeskuratzearen** menpeko eskualdaketen inskripzioa arautu da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Iraupenari buruzko arauketa berriarekin, 1980ko Legean modu xehean araututako eskuratzeeskubideek, eroslehentasunak eta **atzeraeskuratzeak** euren esangura galdu dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

atzeraezin *izond* lehengora ezin itzul daitekeena, atzera-bueltarik ez duena.

Eta orduan dator hurrengo urratsa, erabakigarria, **atzeraezina**: sortzaile pasiboa aktibo bihurtzen da, pultsio indartsu horri jarraikiz. Karlos Linazasoro

Orrialde txiki batean pozoiaren osaera zirriborratu zuen: dosia ondo zainduz gero, eta bizkor idazten banuen, ez zuela zertan ezer **atzeraezinik** gertatu behar. Iban Zaldua

Armiarmak, hala ere, ongi ezagutzen ditu geometriaren lege zorrotzak, bizitzaren lege estu **atzeraezinak** ezagutzen dituen bezala. Felipe Juaristi

Hara hor magistratu baten beharra, zeinen epaiak **atzeraezinak** eta gertaera partikularren baieztapen edo ezeztapen hutsak izango diren. Juan Martin Elexpuru

Ondoren, eskuinaldeko lehendabiziko apaleko lehendabiziko orria irekiko zuen, begirune eta ikara sentituz, **atzeraezinezko** erabaki bati loturik. Monika Etxebarria

Oihalean lerro bakar bat ipintzeak ezin konta hainbat arrisku, erabaki **atzeraezin** eta ugariren peskizan jartzen zuen bera. Anton Garikano

Bide biribil batean, tema **atzeraezin** eta guztiz alferreko batez jira eta jira dabiltzan zomorro gogotsu horiekin konparatzen zuen Hurtadok. Josu Zabaleta

Gero, egitekoaren premia **atzeraezina** zela eta desenkusatuz, mahai gainean zegoen paper mordoa antolatzen hasi zen. Aritz Gorrotxategi

Ezer ez da guztiz **atzeraezina**, baina garapen honek aurrera jarraitzen du, eta aurrera jarraituko duelakoan nago. Berria - Kultura

---

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzeraezina da (7); **atzeraezina dela** (13); **atzeraezina egiteko akordioen** (3); **atzeraezina eta unibertsala** (3); **atzeraezina izan dadin** (3); **atzeraezina izango** (3); **atzeraezina izatea** (6); **atzeraezina izateko** (3); **atzeraezina zen** (3); **bake prozesua atzeraezina** (5); **erabakia atzeraezina** (5); **iraunkorra atzeraezina** (3); **prozesu atzeraezina** (3); **prozesua atzeraezina egiteko** (3); **su etena atzeraezina** (6)

atzeraezinak eta onartezinak (3)

atzeraezintasun *iz* atzeraezina denaren nolakotasuna.

Legearen aurrean pertsona orok eskubide berberak izateko duen eskubidearen eta legearen **atzeraezintasun** printzipioaren aurka doala dio proposamenak. Berria - Euskal Herria

Izan ere, jakinekoa da politika alorrean dena dela posible; politika hiztegiak ez dakarrela **atzeraezintasun** terminorik. Iñaki Heras

---

atzeragabe *izond* atzera-bueltarik ez duena.

Eskutik heldu eta ibilaldi izugarri **atzeragabeari** ekin zioten. Koldo Biguri

Hosto hilen orbeltzak eta azaleko usteltzak lurperaturik datza, hilkin bat bilakatu da, "gauza" bat, baina atomoen heriotza, gurea ez bezala, ez da inoiz **atzeragabea**. Juan Garzia

---

atzeragarri **1** *iz* oztopoa.

Zaldiek, iemstxikak zuzperturik eta **atzeragarririk** inon topatu gabe, bidea irentsi egiten zuten. Karlos Zabala

Hiltzea, lo egitea; lo, ausaz amets egitea: horra hor, bai, koska; ezen, herio-lo horretan zer amets datozkeen bizi-lor hau gainetik ken dezagunean, **atzeragarri** baitugu noski. Juan Garzia

2 *izond* zerbait atzeratzen duena.

Biztanle gutxiko herrialdeetara aski baliabide handiak igortzeak munduko ekonomian zuen eragin **atzeragarria**. Koro Navarro

Prozesu **atzeragarria** ere izan daiteke. Berria - Gaiak

---

atzeragoardia *iz* atzegoardia.

Zerbait gaizki ateratzen denerako **atzeragoardia** armatua ukitu gabe mantentzen dute. Berria - Mundua

Asko hitz egiten da gerran gertatu zenaz, orduko protagonistez, baina monasterio txiki batean bizi ziren haur hauek Katalunian, gerraren **atzeragoardian**, gertatu zenaren ispilu garbia dira. Berria - Kultura

---

atzeragoko *izond/iz* atzerago dagoena.

Atzeragoko eserlekuetan, berriz, gurasoekin eta aitona-amonekin gu bezala Vascongadetara zihoazen ume batzuek bi katu zeuzkaten, eta gu haiekin jolastera hurbildu ginen. Jon Maia

Horiek aspaldiko kontuak ziruditen, duela 50 urte **atzeragokoak**. Berria - Euskal Herria

Lehen lerroan familia kide apurrak eta **atzeragoko** jargietan herritarrak biltzen ziren. Itxaro Borda

Litekeena dirudi, baldin eta, bigarren aldia iritsirik, aurrenekoaren aztarnak gogoratzen baditugu, aztarna horiek **atzeragoko** leizeko oroitzapenen adierazle gertatzea. Koro Navarro

Atzeragoko garaiak hautatuko ditu idazleak, edo geroagokoak. Hasier Etxeberria

---

atzeraka **1** *adlag* atzerantz.

Muski kalearen erditsuan, burua **atzeraka** itzulirik, Abas ikusi zuen, bere ohiko begirakunearekin, begirik kendu gabe. Patxi Zubizarreta

Atzeraka, iraganerantz eraikitzen du Baxterrek nobela. Berria - Kultura

Isunaren egunaren data irakurtzeaz bat, hilabete eta erdiz jo zuen emazteak **atzeraka**, harik eta martxoaren 24ko goizeko senarraren hitzekin topo egin zuen arte. Josetxo Azkona

Martin apartatu egin zen, **atzeraka** jauzi eginez. Koro Navarro

-Nire gauzetan sartzeko eskubiderik ez daukak hik! -erantzun zuen zakar On Camillok, kapela **atzeraka** ipiniz eta gerrian ukabilak estutuz. Koldo Biguri

Oihu, dominstiku eta tu egin du, ihesean **atzeraka** doala. Itziar Otegi

Central Park-en babestera jotzen duenean, arrebatxo Phoebe han ote dabilen begiratzen duenean, **atzeraka** dabil bera, haurtzarorantz. Bernardo Atxaga

Barkamena eskatu nion, ia aurpegira ere begiratu gabe, eta **atzeraka** hasi nintzen, soldadu lanskenetearen grabatuan begiak, museozainarengan baino. Anjel Lertxundi

Apez zaharrak ezin izan zuen beste apez ihardokitzaileekin batean ihes egin, frantsesen bultzadarengatik espainol gudarostea **atzeraka** zihoala jakin zutenean. Elena Touyarou

Gelara egin zuen agenteak: gabardina beltza, traje gris iluna, larruzko kartera besapean, aurpegi txikian begi bizi-hezeak, ezpain fin-ubelak, ile apurrak **atzeraka** orraztuak. Pablo Sastre

2 ***atzeraka egin*** helburutik urrundu; egoera okerragora etorri.

Horren ondotik gaztearengana oldartu zen, zeina, **atzeraka egiten** ari zela, Darruitx xekearen parean baitzegoen. Patxi Zubizarreta

Abadiñok, ordea, soka-kolpea eman zuen laugarren minutuan, eta metro erdia irabazi: gero pixkanaka **atzeraka egin** zuten tiraldia irabazi arte. Berria - Kirola

Egutxik **atzeraka egin** zuen, bere buruari galdetuz ea neskatoak begiak irekiko ote zituen. Ibon Uribarri

Ez dut ukatuko: Karmelok ez zuen nik espero bezala erreakzionatu eta, kasik izularriturik, **atzeraka egin** zuen. Patxi Zubizarreta

Tarteka harri-txitxarretan **atzeraka eginez**, bero-sapak paisaiari ematen dion isiltasun berezi horretan isolaturik, gora iritsi dira. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzeraka ari (3); **atzeraka begiratu** (3); **atzeraka behin ere** (3); **atzeraka bota zuen** (3); **atzeraka doala** (3); **atzeraka egin zuen** (14); **atzeraka eginez** (4); **atzeraka egiten ari** (3); **atzeraka eragiten** (4); **atzeraka erori zen** (5); **atzeraka goaz** (3); **atzeraka goazela** (3); **atzeraka hasi zen** (4); **atzeraka irten** (3); **atzeraka joan zen** (4); **atzeraka jotzea** (3); **atzeraka orraztua** (3); **atzeraka orraztuak** (5); **atzeraka orraztuta** (3); **atzeraka zihoala** (4); **atzeraka zihoan** (3); **aurreraka eta atzeraka** (3); **burua atzeraka** (6); **gainean atzeraka** (3); **ilea atzeraka** (3); **jo eta atzeraka** (3); **oraindik atzeraka** (3); **pixka bat atzeraka** (3); **zen atzeraka** (7); **ziren atzeraka** (3); **zuen atzeraka** (4)

---

atzerakada *iz* atzera egitea; atzerakoa.

Eliza bat **atzerakada** espiritualean erortzeko arriskuan jartzen da bere arauen arabera bizitzeko egintzan bertan. Iñaki Mendiguren

Baina beharbada zuri paisajearen kontu horrek ez dizu hainbesterainoko **atzerakadarik** ematen, eta ontzat hartzeko prest ere egon zintezke. Iñaki Segurola

Amyk emana zidan halako **atzerakaden** berri, eta egunkarian ere deskribatzen zituen. Xabier Olarra

Amorruz botatako harriak putzuan bezala, tiro hark inguruko guztien **atzerakada** eragin zuen, eta atzera nahi horretan, plaza osoa nahasmen zingiratsuan erori zen. Jon Maia

Harrezkero ez da politika hori ezertan aldatu, eta ezagunegiak ditugu euskarak gaur egun bizirik irauteko dituen zailtasunak, eta begibistakoa, egoera horren ondorioz azken hamarkadotan egin duen **atzerakada**. Koldo Zuazo

Txori bilakatzen ari zela iruditzen zitzaion, denboraren **atzerakada** bukatzearren, arrain bihurtu aurretik. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
atzerakada bat (4); **atzerakada demokratikoa** (3); **atzerakada ekarri** (3); **atzerakada gisa** (3); **atzerakada handia** (3); **duen atzerakada** (4)

---

atzerakako *izond* atzeranzkoa.

Atzerakako neure bidaia-egitamu ezkutuan, beste helbururen batzuk banituen. Txillardegi

Hasieran, hala ere, **atzerakako** keinua egin nuen. Joan Mari Irigoien

Haien egunak, han, Pasaian, **atzerakako** zenbaketa bat ziren. Harkaitz Cano

Ondorioz, biek **atzerakako** berdinketa hausten hasi behar izan zuten; 1,92ak erabaki zuen, azkenean. Berria - Kirola

---

atzerakarga *iz* atzerantz higituriko karga. ik **aurrerakarga**.

Tira, elorri beltza pasa eta ajatua ere bai; baina elorritxu xurie, oraindik esnatu ezinean dabil udaberriak **atzerakarga** puxkatxo bat dakarrenean. Pello Zabala

---

atzerako[1] *iz* itzulbidea.

Emaileak hilda egon behar du garuna kendu ahal izateko, eta heriotzaren definizioa horixe da: garunaren jarduera elektrikoaren amaiera **atzerakorik** gabea. Irene Aldasoro

Ederto, Dianetxo, gure artean zaitugu, bai, eta horrek ez dauka **atzerakorik**. Mirentxu Larrañaga

"Atzerakorik ez duen bake prozesuaren atarian" gaudela iritzi dio Begoña Errazti EAko presidenteak. Berria - Euskal Herria

2 *atzerako artazi* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Atzerako artaziarena eginez, erdi hegan, sareetara bidali zuen baloia deabru txikiak. ETC-prentsa

Lehen zatia amaitzear zela Patricia Mascaro etxekoen lehen gola sartzeko zorian egon zen, **atzerako artazia** eginez erremate ikusgarri batekin. ETC-prentsa

3 *atzerako hondeamakina* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Atzerako hondeamakina (ingelesez: "backhoe") indusketak egiteko erabiltzen den eraikuntzako makina da. Hondeamakinaren aldaera bat da da eta ez da harekin nahastu behar. ETC-entziklopedia

4 *atzerako ispilu* auto gidariari atzealdean dagoena ikusten laguntzen dion ispilua.

Olatz etengabe ari zen **atzerako** ispiluan begira, noiz azalduko ote ziren. Harkaitz Cano

Atzerako ispiluari begira hitz egin zion txoferrak. Ramon Saizarbitoria

Atzerako ispilutik begira ari zait gidaria. Anjel Lertxundi

Atzerako **ispiluan** bidaiariari begiratu ondoren. Jon Muñoz

-Hik garbi ikusten al duk? -galdetu zidan, Romanek azalpenak bukatu, eta **atzerako** ispiluan berari begira ageri ziren nire begi biei finko begira. Inazio Mujika Iraola

5 *atzerako kontaketa*

Atzerako kontaketa ez da eten: kontsulta epean daude orain, eta behin 15 egun igarota, enpresak hilabete dauka lekualdaketaren berri langileei emateko. Berria - Ekonomia

Atzerako kontaketa hasi zuen atzo Nazio Batuen Erakundeak: 89 egun barru legez lotuko ditu Kyotoko Protokoloan kide dituen 128 estatuak. Berria - Gaiak

Jukosen amaieraren **atzerako kontaketa** hasi da. Berria - Ekonomia

6 *atzerako martxa* *(**13** agerraldi, **4** liburutan)*

Autora igo, motorra piztu eta **atzerako martxan** jarri zuen. Koro Navarro

Atzerako martxa eta hanka enbragean dardarati, kezkati hau ere (hanka eta ni bat gara). Lander Garro

· *(sexu harremanetan)* Berez nahi gabeko haurdunaldia eragozten ez duten sasi-metodoak erabiltzeagatik, batez ere **atzerako martxa** eta egunen metodoa. **Atzerako martxarekin** egiten dutela dio, eta mutila ez dela barruan husten, eta horrela ezinezkoa dela haurdun geratzea. Luis Elberdin

Bai Oginoren metodoarekin, bai **atzerako martxarekin** beti dago nahi gabe haurdun geratzeko beldurra. Luis Elberdin

---

atzerako[2] 1 *iz* uzkurtasuna; nazka.

Ikusi nuen Umbertok **atzerako** halako bat eragiten ziola etxekoandreari, Anjel Lertxundi

2 *atzerakoa eman* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Hasieran **atzerakoa ematen** du, batez ere letratakoak garenontzat. ETC-prentsa

Baina garai haietako klaseak oso gogorrak ziren, oso direktiboak, eta guri **atzerakoa ematen** ziguten. ETC-prentsa

Potoloak **atzerakoa ematen** du; erru bat dauka gizartearekiko. ETC-prentsa

Orain ere badugu apar apur bat, baina gaur egun ikur-festak **atzerakoa ematen** du... Batez ere, barne-hutsen erakusleiho izaten direlako gehienetan. ETC-prentsa

Esan nahi dut hitzak berak ere **atzerakoa eman** izan didala ia beti, eta, egiari zor, kasik terrorea laztantzen duen izua sortu. ETC-prentsa

JOSEMARI.- Bai. (Makurtu egiten da laguntzeko prest. Baina mozkorrarengana hurbiltzen denean, haren kiratsak **atzerakoa eman** eta botalarria eragiten dio). Aj! ETC-telebista

Aldi berean, munduko kultura guztietan gorputzaren hondakinek **atzerakoa eman** eta zikinkeriatzat hartzen dira. ETC-entziklopedia

3 *atzerakoa eragin* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Gai politikoak ez zituela batere gogoko, **atzerakoa eragiten** ziotela. ETC-literatura, saiakera

Tabernetako xaboi likido gehienek **atzerakoa eragiten** baitiote. ETC-literatura, saiakera

Baina nola izaten diren gauzak, zaharraren zaharrez, aurrerako martxa sartu beharrean, **atzerakoa eragin** zion egun batean autoari, eta portuko uretara erorita hil zen azkenerako. ETC-literatura, saiakera

Hasieratik faxista bat ikusten baduzu, niri, gaur egungo pertsona gisa, **atzerakoa eragiten** dit. ETC-prentsa

Aitor dut **atzerakoa eragin** izan didatela beti, grafiko bat ikuste hutsak tristura halako bat eragiten zidala urdailaren ahoan eta ni, egunkariari dagokionez, Letetarra izan naiz gehiago, libragarri izan dudala, ezen ez bihotzerre eragingarri. ETC-prentsa

Jende samaldek, akaso beti jende artean zabiltzalako, **atzerakoa eragiten** dizute, pereza, pintxo-poteak badira ere. ETC-prentsa

Ikusten ditudanean omenaldiak-eta, instituzionalki soilik eginak, erabilpen alderdikoia eginez, **atzerakoa eragiten** dit. ETC-prentsa

---

atzerakoi 1 *izond/iz* egitez eta pentsamoldez, eta bereziki gizarte gaietan, aurrerabidearen kontrakoa dena.

Patronal neoliberal eta **atzerakoia** dugu, eta patronal horren jarreraren ondorioa da lanbide arteko akordioekin nahiz negoziazio kolektiboarekin gertatzen ari dena. Berria - Ekonomia

Apaizjaleak badira, liberal **atzerakoiak** ere adiskide ditut nik! Koldo Biguri

Hiria eremu librea da, liberalagoa, zabalagoa, argituagoa, eta herriak eta herri-koxkorrak berriz, murritzak, motzak, **atzerakoiak**, jauntxoaren eta apaizaren mendean luzaz egonak. Iñaki Segurola

Sektore **atzerakoienetan**, masturbazioa erabat gaitzesten dute. Luis Elberdin

Euskal Herrian, mundu zabalean bezalaxe, "terrorismoa" aitzakia paregabe bihurtu delako askatasunak murrizteko eta politikarik **atzerakoienak** bultzatzeko. Piarres Xarriton

Haien ikuspuntutik, euskaldunak, nekazari hutsak direnez, **atzerakoiak** eta abadezuloak dira, kasu; edota kulturagabeak eta probintzianoak. Bernardo Atxaga

Nire diskurtsoan, kultur gutxituak ez **atzerakoiak** ez erreakzionarioak direla argudiatu behar dut. Patziku Perurena

Kartzeletan aspertzen diren etarren zirriborro horiek, politikoki **atzerakoiak** eta literatura aldetik zarama hutsa izanagatik, polito saltzen ei dira muturreko abertzaleen artean. Xabier Montoia

Egunkari **atzerakoi** handi honen zine-zutabearen puska bat. Fernando Rey

2 ***eiakulazio atzerakoi*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Bigarren metodo bat zakilaren oinarrian presioa aplikatzea da. Teknika horrek **eiakulazio atzerakoia** eragiten du, non taoistek uste dute Jinga burura doala eta "garuna elikatzen" duela. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atzerakoia dela** (9); **jarrera atzerakoia** (3); **oso atzerakoia** (3); **politika atzerakoia** (4); **proiektua atzerakoia** (4)
> **atzerakoiak direla** (3); **erakunde atzerakoiak** (3)

---

atzerakoikeria *iz* atzerakoitasun gaitzesgarria.

Argi dago pobrezian sartzeko arriskua dagoela, baina **atzerakoikeriak** ere eragina duela uste dut. Berria - Harian

Bigarrena aldiz haserre gorria, minoritate -beti kanpotik etorria!- ekile baten bekaizkeria, izpiritu hertsikeria, burugabekeria, bortizkeria, **atzerakoikeria** etengabe salatzearren. Itxaro Borda

---

atzerakoitasun *iz* atzerakoia denaren nolakotasuna.

Baina, Lauaxetaren **atzerakoitasun** jeltzaleari 60 urteko tirakada emateko indarrik ez nuela iritzita, kontu horiek beste baterako utzi eta isilean euriari begira geratzea hobetsi nuen. Juan Luis Zabala

Beti gorde zuen moderno edo aurrerakoi izateko apeta hori bere **atzerakoitasun** naturalaren barruan. Mikel Hernandez Abaitua

---

atzerakor *izond* atzean geratzeko joera duena.

Giulia, mehe-mehe eta beltzaxka, izotz-begidun Michèle Morgan etereoarekin; ni, otxan eta **atzerakorra**, Jean Gabin desertore, xarmatzaile, harroputz eta malamentean hilarekin. Juan Garzia

---

atzerakuntza **1** *iz* atsegina ez den egoera batean atzera egiteko gogoa.

Arrazoi beragatik, arimaren **atzerakuntza** gogorragoa eta bere kanporakuntza ere handiagoa da, eta elkarren artean banatuago eta aldenduago dagoz. Xabier Amuriza

2 *iz* atzerapena, epean atzeratzea; zerbait atzeratzen den denbora-hedadura.

Gure eskabide demokratikoak beti bitxikeria edo pribilegio moduan aurkeztea, jokabide horrek estatutuetan eragiten dituen **atzerakuntza** eta/edo blokeoekin, nazionalismo "ase ezinaren" irudia sustatuz. Berria - Euskal Herria

---

atzeraldi **1** *iz* atzera egitea; atzera egiten den aldi bakoitza.

Halaxe gertatu ziren erregearen gudu-irtenaldia eta **atzeraldia**. Elizen arteko biblia

Ekintzara bidaltzeko erreserbarik ez baldin badago, lehenengo **atzeraldiak** ez du erremediorik. Josu Zabaleta

Jazarleak jazarriak bilakatu ziren orduan, eta **atzeraldia** eraso. Agustin Otsoa

2 *iz* krisialdi baten ondorengo fasea, jarduera ekonomikoaren adierazleek beherantz egiten dutena.

Dena den, adituek ez dute **atzeraldi** ekonomikoaz hitz egiten oraindik, ekonomiaren balizko geldotze bati buruz baizik. Berria - Harian

Diruaren krisi honi petrolioaren krisiak eta Estatu Batuetako diru-egokitzeak eragindako munduko **atzeraldiaren** ondorioak gaineratu zitzaizkion. Koro Navarro

Interes tasak ekonomiak jasan dezakeena baino gehiago igoko balira, AEBetako ekonomia **atzeraldi** fasean murgilduko litzateke agian. Berria - Ekonomia

Esaten zuten erretiratu egin zutela, jendeak lehen bezainbat ez zuelako edaten, **atzeraldi** ekonomikoaren kariaz. Juan Kruz Igerabide

Hain zuzen ere, ekonomia **atzeraldi** garaian betidanik izan ohi dira teknologia berriak langabeziaren errudun. Iñaki Heras

Horren guztiaren ondorioz, kreditua izoturik geratu zen, ekoizpen-sektorea itota, eta segituan etorri zen **atzeraldia**. Koro Navarro

---

atzeramendu *iz* atzeratzea.

Beste hatz bat barneratu zidan **atzeramendurik** gabe. Aitor Arana

Ideia hori are gehiago indartu du telebistak, zuzeneko transmisioaren bidez, hartan gertaeraren denbora eta irudiarena bat baitatoz erabat, **atzeramendu** infinitesimal baten aldearekin, uhin hertziarrek iristeko behar duten denboraren aldearekin, mikrosegundo batzuk. Josu Zabaleta

---

atzerapauso *iz* atzeraka ematen den pausoa.

Hori barkaezina da, hori sekulako **atzerapausoa** da, hori zure bizkar gainean merezi ez duzun eta, esan gabe doa, merezi ez dugun zama jartzea da. Lander Garro

Laburbilduaz, **atzerapauso** nabarmena ekarri zuen Sabino Aranaren jokabideak. Koldo Zuazo

Horrelakoetan hobe da bi **atzerapauso** egitea eta argudioa birplanteatzea. Askoren artean

Nik neuk ez nuke utziko lanpostua, **atzerapauso** modura sentituko nuke, ernegazio ugari ematen didan arren. Ana Urkiza

---

atzerapausu ik **atzerapauso**.

---

atzerapen **1** *iz* epean atzeratzea; zerbait atzeratzen den denbora-hedadura.

-Larria dun zain egon beharra -esan zuen orduan Mikel Strogoffek-, baina **atzerapen** handiagoak izango genitizken bestela, dudarik gabe. Karlos Zabala

Aireportuko arduradunek jakitera eman dute goizean **atzerapenak** izan zirela baina ez grebak eraginik, lainoak baizik. Berria - Ekonomia

Lehorreratzeko **atzerapena** portuko Poliziak agindu du, ontziak zekarren zama ateratzeko beharrezko ei diren bestelako baimen batzuen aitzakiaz. Paddy Rekalde

Barkatu hamabosteroko gutun honen egun bateko **atzerapena**, baina batzuetan espazioaren eta denboraren zirkunstantziek agintzen dute ororen gainetik. Hasier Etxeberria

Atzerapen handiz iristen ziren gutunak, iristen zirenean. Imanol Unzurrunzaga

Hiru segundoko **atzerapena** besterik ez da, ordea. Koldo Biguri

Zegoen tokian zegoela, ordu hartan alde egingo zuen eta eskola aurrean agertu, ia minutu baten **atzerapenik**. Gotzon Garate

Etxekoekin gogoratu naiz, etxean kezkatuak egon behar dute halako **atzerapenarekin**. Agurtzane Juanena

Mirenen iritziz, **atzerapen**-maila arin bat baino ez zuen Anak. Iban Zaldua

Amak nire **atzerapenaz** galdetuko ote zidan beldur nintzen. Joseba Urteaga

Hamar minutuko **atzerapena** badaramagu dagoeneko. Josu Zabaleta

2 *iz* garapenean, adimenean, bizitza mailan, kulturan eta kidekoetan, dagokion, behar duen edo besteak dauden baino atzerago dagoenaren egoera.

Ez dute lortu AEBekiko **atzerapena** gutxitzea. Berria - Ekonomia

Koherentziarekin bizitzea **atzerapen** bat bihurtu dela gehienentzat. Pako Aristi

Gizonak, txoriontasunik gabeko **atzerapenak** eta ezjakintasunak lotua eta txorimalotua dagoen gizonak, bere zarata, zakar eta zikin dirukumez bete du mundua. Iñaki Segurola

Eta horrekin indibidualismoa, moralkeria, pentsamenduaren **atzerapena**, deshumanizazioa, pestea Luisa, pestea! Pako Aristi

-Gizakiak zigorra bere esku duelako zegon **atzerapen** intelektuala. Anton Garikano

Gaitz hori metabolismoaren nahasmendu bat da, sorbidean den haurraren galgarri izan daitekeen buru-**atzerapen** baten arriskua dakarrena. Juan Garzia

3 ***adimen atzerapen*** *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi)*

Honelako egoerak egon daitezke: umearen gaixotasun kronikoa, **adimen-atzerapena**, sentimen-urritasuna edo urritasun fisikoa, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Down-en sindromea duten gizabanakoek 21 kromosomaren hiru kopia dituzte, eta horrek ezaugarri mongoloideak, hatz motzak, garaiera txikia eta **adimen-atzerapena** dakartza. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gaixotasun honetan tirosinaren metabolizazioa oztopatuta dago eta gorputzean pilatzean arazo larriak sortzen ditu (gibel- eta giltzurrun-patologiak, **adimen-atzerapena**...). ETC-zientzia, zuzenbidea

Down-en sindromea edo 21 trisomia 21. kromosoma parean hiru kromosoma agertzearen ondoriozko asaldura genetikoa da, bere ezaugarriak **adimen atzerapena** eta bereizgarri fisiko bereziak izanik. ETC-entziklopedia

Garaia baino lehen jaiotzen diren haurtxoek bizitzako lehen urteetan hiltzeko arrisku handia dute, baita osasun-arazo larriak garatzeko, hala nola garuneko paralisia, biriketako gaixotasun kronikoak, urdail-hesteetako arazoak, **adimen-atzerapena**, ikusmenaren eta entzumenaren galera edota bat-bateko heriotzaren sindromea. ETC-entziklopedia

Garapen fisiko eta intelektualean atzerapenak agertzen dira, eta gaixoek **adimen atzerapena** dute. ETC-entziklopedia

Crispinak **adimen-atzerapen** bat du eta komentuko apaiz batek bortxatuta izaten du, Fitzroy deituriko apaiz batek. ETC-entziklopedia

Phenylkenoturya delakoak 14.000 umetik bati erasaten dio, eta sendabide egokirik ezean **adimen-atzerapena** eta kalte neurologiko larriak eragiten ditu; phenylanina urriko dieta batekin, berriz, ondorio horiek ekidin daitezke. ETC-prentsa

Adimen atzerapena dutenek garaian garaiko gizartean parte hartzerik badutela frogatzen jardun du elkarteak urte horietan guztietan. ETC-prentsa

Uliazpi Fundazioak orain dela hiru urte zabaldu zuen Bergaran **adimen atzerapen** zorrotza duten pertsonendako eguneko zentroa. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzerapen bat (6); **atzerapen baten** (3); **atzerapen handiak izan** (3); **atzerapen handiarekin** (4); **atzerapen hori** (8); **atzerapen horrek** (5); **atzerapen horren** (3); **atzerapen hura** (3); **baina atzerapen** (5)

astebeteko atzerapena (4); **atzerapena badu** (3); **atzerapena baino ez** (3); **atzerapena besterik ez** (3); **atzerapena du** (8); **atzerapena eman** (3); **atzerapena eskatu** (9); **atzerapena eskatuko** (4); **atzerapena eskatzen** (3); **atzerapena ez** (4); **atzerapena izan** (9); **baino gehiagoko atzerapena** (3); **bateko atzerapena** (7); **bi asteko atzerapena** (3); **da atzerapena** (3); **du atzerapena** (3); **lau segundoko atzerapena** (3); **minutuko atzerapena** (9); **ordu erdiko atzerapena** (3); **segundoko atzerapena baino** (3); **urteko atzerapena** (4); **zuen atzerapena** (6)

atzerapenak eragin (5); **atzerapenak izan ziren** (3); **gizarte segurantzako atzerapenak** (3)

atzerapenarekin hasi zen (4); **atzerapenarekin helmugaratu** (4); **hamar minutuko atzerapenarekin** (3); **hilabeteko atzerapenarekin** (5); **inguruko atzerapenarekin** (3); **minutuko atzerapenarekin hasi** (3); **segundoko atzerapenarekin** (10); **urtebeteko atzerapenarekin** (3); **urteko atzerapenarekin** (6)

urteko atzerapenaz (3)

atzerapenik ez (9); **atzerapenik ezean** (4); **atzerapenik gabe** (10); **inolako atzerapenik** (5)

---

atzerarazi, atzeraraz, atzerarazten du *ad* atzera eragin, atzeratzera behartu.

Bi eskuekin ere banuen asmoa marka egiteko, baina belauneko lesioak eta alergiak **atzerarazi** egin didate prestaketa, eta azkenean ez egitea erabaki dugu. Berria - Kirola

Argi ikusi zuen aitak ezin zuela semea bere asmoetatik **atzerarazi**; orduan, dirua berreskuratzera zuzendu zuen bere ahalegin guztia. Askoren artean

-Ez nazazue **atzerarazi**, Jaunak nire bidaiari bukaera ona eman dionez gero. Elizen arteko biblia

Behin alde egiteko erabakia hartuz gero, abiatzea **atzeraraziko** dion eragozpen handirik ez da. Oskar Arana

Honela animalia bakoitza berari dagokion usainak larreratzen du eta pozoin kiratsuak **atzerarazten**, eta horrelaxe diraute piztien espezieek. Xabier Amuriza

---

atzeratasun *iz* atzean geratutakoaren nolakotasuna.

Indiako **atzeratasuna** azaltzeko, lau arrazoi nagusi ematen dituzte ekonomistek: bata, biztanleriaren haztea. Gotzon Garate

---

atzeratu, atzera(tu), atzeratzen **1** du *ad* zerbait, geroago egiteko utzi.

Elenak, baina, bidaia **atzeratzea** erabaki eta bezperan eman zion planen aldaketaren berri. Xabier Montoia

Afalordua **atzeratu** egin bazuten ere, Wilmarth andereñoa berandu samar azaldu zen. Mirentxu Larrañaga

Luperen begietan pausatu zenituen zeureak irmo, arnasestuka, eta haren barneko hezegunean zeharo husteko tenorea **atzeratu** zizun pentsamendu ezusteko batek. Hasier Etxeberria

Gainerako grilulagunei bezalaxe **atzeratu** digute guri biseanbiseko hau, ez gehiago, Maritxu eta biok konbibentziako agiri faltsu bat besterik ez edukiagatik. Koldo Izagirre

Horregatik **atzeratu** nuen hitzordua, haurdun geldituz bakarrik eraman bainezakeen aurrera neure mendekua eta ekonomikoki arnasa hartu, ulertu al didazu? Joan Mari Irigoien

2 da *ad* berandu heldu.

Asko **atzeratzen** bada, ez dakit gero kemenik izango dudan horren bidaia luzea egiteko. Alberto Barandiaren

Horrela, gu gazteak behintzat bagoazela ikusten dutenean, ez dira oihuka hasiko zuek **atzeratzen** bazarete. Josu Zabaleta

Honzík ingeniariak begiratu egin zidan, begiak tristeziaz eta amorrazioz hartuak zituen, zorrotz begiratutako tren hori justu bere sektorean **atzeratu** zelako. Fernando Rey

3 da *ad* zerbait egiten, uste edo behar baino denbora gehiago igaro.

Hori dela-eta, Goia baserrira bihurtzeko asmoa (asmo zindoa, ez pentsa), dexente **atzeratu** zitzaidan. Txillardegi

Margo oihalen azken itsasoratzea **atzeratu** egin zen dibisen aldaketako zailtasunengatik, baina sobera denboraz iritsiko zaie zure Berlingo bazkideei. Ramon Etxezarreta

Baina euri madarikatu hark ez zuen atertu nahi eta bere planak **atzeratzen** ari zen! Joanes Urkixo

Sabino Agirre kalekoak aste bi **atzeratuta** zebiltzan soldataren kontuarekin. Iban Zaldua

Denborak beteagatik, umea egiten **atzeratzen** zen behi ernariari ere, ematen zitzaion askotan mihuraren ura, sebeleko umeari lehenbailen kanpora eragiteko. Patziku Perurena

Helegitea, zenbat egunez **atzeratu** zen horrela? Edorta Jimenez

Bazkaria pixka bat **atzeratzen** zelako edo jateko zerbait sobera egina zegoelako. Fernando Rey

4 da/du *ad* atzera egin edo eragin.

Hori guztia gogoan izanik, ohean bakarrik trabeska edo norbaitekin zuzen edo korapilaturik egon zitekeela pentsatzeak **atzeratu** egin behar ninduen baina, hala ere, sarrailan giltza sartu eta itzulia eman nion. Joxean Agirre

Heriotza hain hurbil ikusteak **atzeratu** egin al zuen Donatien, edota, gutxienez, kontu handiagoz ibiltzen hasi ote zen harrezkero? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

5 da/du *ad* atzerago jarri.

Dylanek eserlekua **atzeratu** zuen, albo batera etzanez. Pako Aristi

Burua **atzeratu** zuen momentu batez. Fernando Morillo

Beso bat **atzeratu** eta sokari oratu zion, Amyk buruari atxikitzen zion bitartean. Anton Garikano

Florentek bere ukondo zimelak, bere sorbalda iharrak **atzeratzen** zituen, haragi hartan hondoratzeko beldur zehazgabeak harrapaturik. Karlos Zabala

6 (partizipio burutua izenondo gisa)

Gure justiziak kultura **atzeratuenak** ere errespetatzen duen zerbait zapaldu du, sakratua dena: hildakoek atsedenerako duten eskubidea. Ramon Saizarbitoria

Ez da sekula ere abiaburutzat hartu eskualde ahul eta **atzeratu** bateko hizkera, edota hiztunek eurek gaitzesten duten lekukoa. Koldo Zuazo

Batek pentsa lezake mundu desberdin eta injustu honetan injustiziak iparraldearen eta hegoaldearen artean bakarrik, edo herri aurreratuen eta **atzeratuen** artean bakarrik, gertatzen direla. Pello Salaburu

Bi astetako parrandek eta lo **atzeratuek** hementxe balute bezala beren ordaina. Xabier Mendiguren Elizegi

Lasai, ez dago sekretua gorde beharrik; eskolaurreko mukizu **atzeratuenek** ere badakite-eta horren berri. Patxi Iturritegi

Paper zahar **atzeratuetan**, berriz, aspaldion buruan jirabiraka dabilzkidan ideia nahasiak aurkitu ditut, argi, txukun, dotore adierazita. Joxerra Garzia

Petrolioaren prezioaren beheraldiaren ondorio **atzeratuekin** batera, diru-lasaitzeak munduko jarduera suspertzen lagunduko zuen 1988 eta 1989 artean. Koro Navarro

Aurrez aurre ditu biak, Xereal egunkari **atzeratuen** pila ondoan, eta Xankapo eskuinerago, leihopean ia. Iñaki Iñurrieta

7 ***eiakulazio atzeratu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Normalean, estimulazioaren ondoren isurketa gertatzen da, nahiz eta posible den eiakulazio gabe ere orgasmora heltzea, **eiakulazio atzeratua** dela eta. ETC-entziklopedia

8 ***isurketa atzeratu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Pilula koitoa egin baino 1-3 ordu lehenago hartzen da, eta bere egitekoa **isurketa atzeratzea** da. ETC-prentsa

---

atzeratze *iz atzeratu* aditzari dagokion ekintza. ik **atzeramendu**.

Ez dut alarmista izan nahi, baina hobe da bilera gehiago ez **atzeratzea**. Fernando Morillo

Trottak, aitzitik, ez du inperioaren -mundu zaharraren- desagertzea pixka batean **atzeratzea** besterik lortu bere balentriarekin. Anjel Lertxundi

Euri jasagatik bertan behera utzi zuten atzo trikiti jaialdi handia eta San Pedro bueltarako **atzeratzea** erabaki. Berria - Kultura

Ez al da berdin egun batzuk **atzeratzea**? Koldo Biguri

Garbitasuna lehen zela eta pentsatzea zein ez-pentsatzea **atzeratzea** erabaki nuen, bizitzako une bakoitza herio txiki ugariz azpiltzen zela sinestera heldua nintzelako. Itxaro Borda

Biharamunean beste bouak konponduta egongo zirelakoan eta egun hartan aukeran izandakoa hogeita lau orduz **atzeratzea** besterik izan ez zela sinetsi guran. Edorta Jimenez

Anaia txit maitea, gu kanpora garamatzan arazoa pixka bat **atzeratzerik** balego... Askoren artean

Eta horrela, oso nekez eta modu txarrean, lortzen nuen bataila hori beste astebete **atzeratzea** eta horrek pozez gainezka uzten ninduen, gutxienez beste lauzpabost egunerako. Joxemari Iturralde

---

atzeraxeago *adlag* apur bat atzerago.

Soilgunetik zihoazela, etorritakoan bezalako itxura zeukaten: Sethe aurrean, neskak **atzeraxeago**. Anton Garikano

Isidro Nozal **atzeraxeago**, bihotzaren aginduen kontra borrokan, iazko Vueltan lortutako bigarren postua zorte kontua zela esan zutenei zer pentsatua ematen. Berria - Kirola

Oteitzaren kafetegi berria neukan aurrealdean, eta Matheu-Balda Hotel gaitz arbelduna **atzeraxeago**. Txillardegi

Baina **atzeraxeago** geratu zen, bikoteari aurrerago egiten uzteko. Koro Navarro

Atzeraxeago, gay eta lesbianen guraso saldoa dator ortzadarraren banderak hartuta. Harkaitz Cano

Gaztelua **atzeraxeago** ikusten zuen, orain gertu duten faroaren gainean, hain zuzen. Jokin Muñoz

Haiek baino **atzeraxeago** Prefekturako sendagilea ezkutatzen zen. Josu Zabaleta

---

atzerazi ik **atzerarazi**.

---

atzerri **1** *iz* norberarena ez den herria; lurralde edo herri arrotza.

Berehala ezagutu eta goretsi zuten **atzerrian** Poeren izena. Koro Navarro

Nabarmendu egiten ziren hizpidera **atzerriko** hitzak ekarriz. Patxi Zubizarreta

Atzerrira joan beharko zenukeen bizitzera eta sekula inor ez ikustera behartu zeure burua eta... Mirentxu Larrañaga

Eta berdin dio kaltegarri zaizkigun **atzerrietara** geu joan gaitezen eta eguratsa alda dezagun, ala naturak berak ekar diezagun egurats ustela edo gure ohiturei ez dagokien zerbait, bat-bateko etorreraz gaixoaraz gaitzakeena. Xabier Amuriza

Atzerriko kongresuetako azafaten orrazkerak emaztearen grinak baino hobeto ezagutzen zituen politiko batena. Unai Elorriaga

Batez ere **atzerriko** kazetariei esker egin zuen egiak bere bidea. Pello Salaburu

Baina ez zitzaizkion **atzerriko** etsaiak matxinatu, ez erresuma barruko traidoreak, ezta morroi eta jopu gosetuak ere. Anjel Lertxundi

2 *iz* norbait atzerriraturik dagoen lekua, erbestea.

Etsaietatik bizirik geldituak **atzerrira** joan ziren ihesi, beren buruak salbatzeko. Elizen arteko biblia

Pertsekutatu eginen gaituzte, ustez lehen aldiz zapaltzen dugun hiri bateko taxistaren ezusteko begiradan, **atzerrian** bizi den osaba zahar baten etxeko horma erlojuko atea ireki eta penduluari eragiten diogun unean atzerako tik-tak zenbaketa bat hasten dugunean. Harkaitz Cano

Azkenik, Mobuturen aurkako jazarraldiek garaipena lortu zuten, eta diktadore zaharra **atzerrian** hil zen. Iban Zaldua

Eta modu ahalmengabe eta lausoan izango zara zure sorterriaren ordezkaria hor ere, **atzerriko** azkenportu horretan, ordurako zure herriak ahaztuta izango zaituelako, edota zeuk ere zeure herria zer den ia atzenduta izango duzulako. Joseba Sarrionandia

3 *atzerri ministerio*

Hango **Atzerri Ministerioak** hartutako erabakiari babes helegitea aurkeztuko dio sei euskal herritarren abokatuak. Berria - Euskal Herria

Frantziako **Atzerri Ministerioaren** eledun Herve Ladsousek atzo esan zuenez, astelehen gauean Falujan izandako erasoan bi frantses hil eta bat zauritu zuten. Berria - Mundua

Atzerri Ministerioko beste batzuek nahiago dute negoziatzen jarraitzea eta horretarako gidaritza Europari uztea. Berria - Mundua

Gazako erretiratzea bakerako aukera historikotzat jo du Israelgo **Atzerri Ministerioko** eledunak. Berria - Harian

4 *atzerri ministro*

Alemania, Erresuma Batua eta Frantziako **Atzerri ministroek** Iranera egin zuten bidaiaren ondorioz, nuklearra ez hedatzeko itun gehigarria sinatuko zuela agindu zuen Teheranek. Berria - Mundua

Eskaera hori ez du bete AEBen proposamenak, baina hala ere onartzeko prest agertu zen atzo Frantziako **Atzerri ministro** Michel Barnier. Berria - Mundua

Hala, Tarik Aziz **Atzerri ministro** ohia Zortziko pika genuen; Saddam Husseinen anaiorde Barzan Ibrahim Hassan ai Tikriti Bosteko hirusta... eta hala, 52 osatu arte. Iñigo Aranbarri

Bederatzian, Eva Duarteren aldeko elizkizunak egin ziren katedralean, baina **atzerri ministroa** besterik ez zen azaldu autoritateen lerroetan. Koldo Izagirre

Ez da sinesgarria: egunotan Espainiako **Atzerri Ministroak** mendebaleko Estatuen beste gerra bat Irakekin egotea oso posible dela, iragarri du telebistan: ez jendoldeen indignazioaren uhin handirik eta ez intelektualen protesta txiki-txikirik ez da inon ikusi. Joxe Azurmendi

5 *atzerri politika*

EBko **Atzerri Politika** eta Segurtasunerako goi ordezkari Javier Solana emaitzaz kexu agertu zen; "Aterabidea lasaitasunez bilatu beharra dago», esan zuen. Berria - Harian

Atzerri politikan adarretatik joan zen eta barne politikaren errealitatea ahaztu zuen. Berria - Mundua

Bilera horretan parte hartu zuten Alemaniako diplomaziaburuak eta Europako Batasuneko **Atzerri Politikarako** goi komisarioak ere. Berria - Mundua

Nagusiak: zerga politika, diru politika, **atzerri politika** eta errenta politika (oinarrizko prezioen eta soldaten finkatzea). Iñaki Heras

Europako Batasunaren Itunak, labur bilduz, hiru gai nagusi jorratzen ditu: ekonomia, **atzerri politika** eta segurtasuna, eta barne politika eta justizia. Iñaki Heras

Alde biko laguntza gerra hotzaren eta deskolonizazioaren emaitza da, baina, ororen gainetik, estatu-emaileentzat, **atzerri-politikarako** tresna da, presentzia estrategikoaren, politika- eta kultura-eraginaren truke eman beharrekoa. Koro Navarro

Japoniaren **atzerri-politikaren** historia K.o. 1868tik 1931ra aukerabide hauen arteko oszilazioen historia da. Iñaki Mendiguren

6 *atzerriko hizkuntza*

Era berean, Colicek **atzerriko hizkuntzarik** ez irakastea ere proposatu zuen, dirua aurrezteko.->berria-euskalherria¬2004-10-08<-"Euskarari **atzerriko hizkuntza** baten tratamendu berbera ematen zaio, ingelesa balitz bezala», kritikatu zuen. Berria - Gaiak

Urte guzirako postuak: Gaztelania **atzerriko hizkuntza** : 7 oren 3 oren astean (10 oren astean) . Herria

Esaldi bat fidelki itzulita **atzerriko hizkuntza** batera: bi enuntziatu ezberdinak al dira ala bakarra da? Xabier Arregi

Gehienak ingelesez edo alemanez egoten ziren, apika ez zitzaiolako hain ariketa hutsala iruditzen nobela haiek **atzerriko hizkuntza** batean irakurtzea. Fernando Rey

Eta fenomeno nagusiari ekingo diogu, **atzerriko hizkuntza** baten ekartze eta literatura hizkuntza sortze orotatik at. Isabel Arrigain

Ardoa ari zarete edaten, ardo frantsesa, kanpoko eta barrengo hotzak gainditzeko, **atzerriko hizkuntzaz** inguraturik arrotz ez sentitzeko. Lourdes Oñederra

Atzerriko hizkuntzak ikasten ditugunean, beti izan ohi dugu kontuan irakaslea natiboa den ala ez. Koldo Zuazo

Zeren nahiz eta burua neukan garai hartan oso nahastua, ez nuen ahaztu niretzat ardura handikoa izan zitekeela inoiz "**atzerriko hizkuntzak** ongi jakitea" Solowejczykek kontseilatu zidan moduan. Matías Múgica

7 *atzerriko zor*

Agintariek **atzerriko zorraren** parte baten luzamendua iragarri zuten orduan, NDFren krediturak etenarazi zituena. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aeben atzerri politika (3); **aebetako atzerri** (3); **aginte nazionaleko atzerri** (5); **alemaniako atzerri ministro** (12); **alemaniako atzerri ministroa** (3); **alemaniako atzerri ministroak** (5)

atzerri aferetarako (3); **atzerri arazoetako estatu** (3); **atzerri eta segurtasun** (4); **atzerri gaietarako estatu** (3); **atzerri harremanetarako komisario** (4); **atzerri komisario** (4); **atzerri ministerioa** (6); **atzerri ministerioak atzo** (4); **atzerri ministerioak estradizioa** (3); **atzerri ministerioak hartu** (3); **atzerri ministerioan** (4); **atzerri ministerioaren bozeramaile** (5); **atzerri ministerioari** (3); **atzerri ministerioko bozeramaile** (8); **atzerri ministerioko bozeramaileak** (6); **atzerri ministerioko eledun** (14); **atzerri ministerioko eledunak** (7); **atzerri ministerioko idazkari** (3); **atzerri ministerioko idazkariorde** (3); **atzerri ministeriotik** (4); **atzerri ministro abdula** (8); **atzerri ministro ahmed** (6); **atzerri ministro anna** (3); **atzerri ministro bernard** (6); **atzerri ministro brian** (4); **atzerri ministro dermot** (6); **atzerri ministro dominique** (4); **atzerri ministro faruk** (4); **atzerri ministro felipe** (3); **atzerri ministro franco** (4); **atzerri ministro frank** (6); **atzerri ministro gianfranco** (3); **atzerri ministro hoshiar** (11); **atzerri ministro izan** (3); **atzerri ministro jack** (27); **atzerri ministro joschka** (7); **atzerri ministro kamal** (7); **atzerri ministro kargua** (3); **atzerri ministro karguan** (6); **atzerri ministro mahmud** (4); **atzerri ministro michel** (9); **atzerri ministro miguel** (12); **atzerri ministro mustafa** (6); **atzerri ministro nabil** (6); **atzerri ministro ohi** (9); **atzerri ministro ohia** (6); **atzerri ministro ohiak** (6); **atzerri ministro philippe** (4); **atzerri ministro sergei** (22); **atzerri ministro silvan** (16); **atzerri ministro tzipi** (6); **atzerri ministro ursula** (5); **atzerri ministro vuk** (4); **atzerri ministroa izango** (3); **atzerri ministroa zen** (3); **atzerri ministroak adierazi** (4); **atzerri ministroak atzo** (10); **atzerri ministroak berak** (3); **atzerri ministroak datorren** (3); **atzerri ministroak ere** (8); **atzerri ministroak esan** (3); **atzerri ministroak ez** (3); **atzerri ministroak hau** (3); **atzerri ministroarekin bildu** (3); **atzerri ministroaren arabera** (6); **atzerri ministroaren esanetan** (6); **atzerri ministroekin** (4); **atzerri ministroen** (3); **atzerri ministrordeak** (4); **atzerri politikako** (5); **atzerri politikarako arduradun** (4); **atzerri politikarako goi** (9); **atzerri politikaren** (17); **atzerri politikari buruz** (3); **atzerri zorra** (3)

atzo frantziako atzerri (3); **austriako atzerri ministro** (4); **barnier atzerri ministroa** (4); **barnier atzerri ministroak** (4); **barnier frantziako atzerri** (7); **batasuneko atzerri ministroek** (12); **batasuneko atzerri politika** (21); **batasuneko atzerri politikarako** (9); **batuko atzerri ministerioak** (5); **batuko atzerri ministerioko** (6); **batuko atzerri ministro** (27); **batuko atzerri ministroa** (3); **batuko atzerri ministroak** (8); **bushen atzerri politika** (4); **danimarkako atzerri** (4); **defentsa eta atzerri** (3); **du atzerri** (6); **ebko atzerri gaietarako** (3); **ebko atzerri harremanetarako** (5); **ebko atzerri ministroek** (4); **ebko atzerri politika** (14); **ebko atzerri politikarako** (3); **ebren atzerri politika** (6); **egiptoko atzerri ministro** (6); **egiptoko atzerri ministroak** (3); **erabakia mexikoko atzerri** (4); **erresuma batuko atzerri** (52); **errusiako atzerri ministerioak** (3); **errusiako atzerri ministerioko** (5); **errusiako atzerri ministro** (21); **errusiako atzerri ministroak** (4); **espainiako atzerri gaietarako** (3); **espainiako atzerri ministro** (10); **espainiako atzerri ministroak** (8); **estatu batuen atzerri** (3); **estatu batuetako atzerri** (3); **europako atzerri** (4); **europako batasuneko atzerri** (53); **europako batzordeko atzerri** (3); **filipinetako atzerri** (4); **fischer alemaniako atzerri** (3); **fischer atzerri** (3); **frantziako atzerri ministerioaren** (3); **frantziako atzerri ministerioko** (5); **frantziako atzerri ministro** (19); **frantziako atzerri ministroak** (11); **frattini italiako atzerri** (3); **garai hartan atzerri** (3); **gobernuaren atzerri** (3); **gobernuko atzerri ministro** (5); **hego koreako atzerri** (3); **herbehereetako atzerri ministro** (7); **herrialdeetako atzerri** (5)

legebiltzarreko atzerri gaietarako (3); **lindh atzerri** (3); **lindh suediako atzerri** (4); **livni atzerri ministroak** (3); **mexikoko atzerri ministerioak** (11); **mexikoko atzerri ministroak** (3); **michel barnier atzerri** (9); **montenegroko atzerri ministro** (4); **moratinos espainiako atzerri** (6); **nabil shaat atzerri** (3); **nazionaleko atzerri ministro** (4); **pakistango atzerri** (6); **palestinako atzerri** (4); **paneko atzerri ministro** (5); **poloniako atzerri** (5); **reza asefi atzerri** (3); **saudi arabiako atzerri** (4); **segurtasun eta atzerri** (4); **sergei lavrov atzerri** (4); **shalom atzerri ministroak** (3); **shalom israelgo atzerri** (4); **silvan shalom atzerri** (4); **siriako atzerri ministro** (3); **straw atzerri ministroak** (4); **sudango atzerri ministro** (6); **sudango atzerri ministroak** (3); **suediako atzerri ministro** (4); **suediako atzerri ministroa** (3); **turkiako atzerri ministro** (6); **txinako atzerri ministerioko** (3); **txinako atzerri ministro** (5); **tzipi livni atzerri** (3); **villepin frantziako atzerri** (3); **zebari irakeko atzerri** (3); **zein atzerri** (4); **zuen atzerri ministroak** (4); **zuen irango atzerri** (5); **zuen israelgo atzerri** (5)

atzerrian bizi diren (20); **atzerrian bizi izan** (3); **atzerrian dauden** (9); **atzerrian duen** (3); **atzerrian egin** (4); **atzerrian egindako** (3); **atzerrian egiten** (5); **atzerrian egon** (3); **atzerrian ere** (9); **atzerrian hil** (6); **atzerrian inbertitzeko** (3); **atzerrian izan** (4); **atzerrian lan** (4); **atzerrian lanean** (3); **bai atzerrian** (6); **baina atzerrian** (6); **da atzerrian** (5); **dira atzerrian** (3); **ditu atzerrian** (4); **du atzerrian** (5); **dute atzerrian** (4); **edo atzerrian** (5); **enpresek atzerrian** (4); **ere atzerrian** (4); **nahiz atzerrian** (4); **zuten atzerrian** (4)

atzerrien artean (3)

ospea atzerrietan (3)

atzerriko agintari (3); **atzerriko bankuetan** (3); **atzerriko botoak** (3); **atzerriko diru** (8); **atzerriko edozein** (3); **atzerriko enpresek** (9); **atzerriko enpresen** (4); **atzerriko esku**

(5); **atzerriko estatu unibertsal** (3); **atzerriko film onenaren** (7); **atzerriko gizarte gorputz** (3); **atzerriko haur** (3); **atzerriko herri** (4); **atzerriko herralde** (4); **atzerriko hiri** (6); **atzerriko hiriak** (3); **atzerriko hizkuntza batean** (4); **atzerriko hizkuntza irakasten** (3); **atzerriko hizkuntzak** (5); **atzerriko hizkuntzen** (4); **atzerriko inbertsio** (4); **atzerriko inbertsioa** (3); **atzerriko inbertsioak** (4); **atzerriko inbertsioen** (6); **atzerriko inbertsiogileek** (4); **atzerriko indar** (3); **atzerriko indarren** (3); **atzerriko italiarren** (3); **atzerriko konpainia** (3); **atzerriko konpainien** (3); **atzerriko kultura** (4); **atzerriko lurralde** (3); **atzerriko musika** (4); **atzerriko nazioen** (3); **atzerriko petrolio** (4); **atzerriko talde** (6); **atzerriko zenbait** (3); **baina atzerriko** (5); **baita atzerriko** (4); **bertako zein atzerriko** (3); **da atzerriko zerbitzu** (3); **dauden atzerriko** (5); **du atzerriko** (6); **dute atzerriko** (4); **duten atzerriko** (3); **edo atzerriko beste** (3); **ere atzerriko** (5); **hasieran atzerriko** (3); **hemengo eta atzerriko** (3); **herriko eta atzerriko** (6); **herriko nahiz atzerriko** (7); **herriko zein atzerriko** (6); **zen atzerriko** (7); **ziren atzerriko** (5); **zuen atzerriko** (6)

atzerrira alde egin (3); **atzerrira atera** (3); **atzerrira bidali** (3); **atzerrira egindako** (3); **atzerrira eraman** (3); **atzerrira eramaten** (4); **atzerrira ere** (3); **atzerrira ihes egin** (4); **atzerrira jo** (3); **atzerrira joan behar** (7); **atzerrira joan ziren** (4); **atzerrira joatea** (5); **atzerrira joateko** (7); **atzerrira joaten** (4); **edo atzerrira** (4); **ere atzerrira** (3); **euskal literaturak atzerrira** (3)

atzerritik ekarritako (5); **atzerritik etorriko** (3); **da atzerritik** (3); **guztiak atzerritik** (3)

---

atzerrialdi *iz* atzerrian, bereziki beharturik, igarotzen den denbora. ik **erbestealdi**.

Kontua Sarrionandiaz ari, **atzerrialdiak** iraun eta iraun eta bukatzen ez denean. Berria - Kultura

Berak ere, Puiko jeneralek bezalaxe, ez baitzuen **atzerrialdiko** 34 urte luzeetan amore eman; ez baitzuen marotisten saldukeria inoiz barkatu. Txillardegi

Sei hilabete **atzerrialdian** eman ondoren indultua jaso zuen berorren maiestateak emana eta Errusiara itzuli zen. Karlos Zabala

---

atzerriratu, atzerrira(tu), atzerriratzen **1** da/du *ad* atzerrira, bereziki beharturik, joan; atzerrira eraman. ik **erbesteratu**.

Soldaduak, merkatariak, **atzerriratuak**, nekazariak, den-denak hiriaren salbazioaren alde aritu ziren eginahalean. Karlos Zabala

Ez ezazue erail, ez ezazue **atzerriratu**; astakeria horiek errege ei eta haiek imitatzen saiatzen diren doilorkumeei dagozkie bakarrik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zurekin hitz egin nahi du zeure **atzerriratzeaz**. Antton Olano

Autoak, osagai elektrikoak, telekomunikazioetarako ekipoak eta pantaila laudun telebistak izan dira gehien **atzerriratu** dituzten ondasunak. Berria - Ekonomia

Zendako ote? galdatu zuen Migel Unamunokoak, Espainiak **atzerriratu** zuelarik eta, Biriatuko oroitarriaren aitzinean gogoetaturik, gaztelaniazko ¿Para qué? olerki hunkigarria asmatu zuelarik. Piarres Xarriton

Asilo politikoa onartua izan arren, galarazita zeukaten Ipar Euskal Herrian bizitzea, eta, Errepublikaren Konstituzio Legeak zioenaren kontra, **atzerriratuta** zeuden. Rafa Egiguren

2 (partizipio burutua izenondo edo izen gisa)

Euskal **atzerriratu** batekin elkartua zen, eta amnistiaren ondoren Euskal Herrira etorria zen bizitzera. Juan Kruz Igerabide

Zapaltzaileek hain erabat huts egin zuten kultur mailako erantzunaren aukera kontuan hartzen, ezen, eurek beren eskuez, jarri baitzituzten beren biktimak kultur misio-eremu batean, **atzerriratu** haiek inoiz bisitatuko ez zuketena, han ez balituzte indarrez eta gogoz kontra jarri izan. Iñaki Mendiguren

Baina aberastasun handiena, herritik kanpo lan egitera joan diren milioika **atzerriratuengatik** dator. Ramuntxo Etxeberri

Atzerriratu batek idatzia zen deialdi hori, politikan aritzen zen filosofo batek. Jon Muñoz

Alabaina, gure erregina **atzerriratuaren** mezu bat ekarria nuen, Bidaxunetik, ene gorputzari itsatsia. Aingeru Epaltza

Preso, **atzerriratua**, ala herri honetaz higuindurik alde egindakoa ote zaren. Hasier Etxeberria

---

atzerritar **1** *izond/iz* atzerrikoa, arrotza.

Zazpi ziren, lau gizon eta hiru emazte, denak **atzerritarrak** eta euskaraz mintzo errexki, batzu azentu pixka batekin. Herria

Atzerritarren aurrean aldarte ona erakustera beharturik geunden. Edorta Jimenez

Emakume batzuek **atzerritarrekin** ezkontzeko prest daudela iragartzen dute kazetetan. Gotzon Garate

Frantsiskotarrek **atzerritar** ikasleak, bereziki kolonietatik etorriak laguntzen zituzten eta haiekin akomeatzen nintzen: ni ere Bordelen arrotz bat nintzen. Piarres Aintziart

Hara eta hona mugitzen zen, **atzerritarren** artean, bertakoen artean, jendearekin nahasiz edo bakarka. Fernando Morillo

Baziren zenbait aurpegi, etxetik ezagunak zitzaizkigunak, ehunka **atzerritarren** artean bereizgarri. Mirentxu Larrañaga

Hurrengo egunean **atzerritar** batzuk ikusi nituen toldo hori eta zuriaren itzalpean eserita, urteko lehen udatiarrak. Bernardo Atxaga

Atzerritarren bahiketa oldea hiru japoniarrekin hasi zen, joan den astean, eta haien egoeran ez zen aldaketarik izan atzo iluntzean. Berria - Mundua

Hiria ezaguna egiten da filmetatik, etxean nago, hiritar guztiak dira **atzerritarrak**, beraz denak bertakoak. Harkaitz Cano

Doinu **atzerritarra** zuen, eta oso motel hitz egiten zuen; zalantzarik gabe, horrituta zegoen. Iban Zaldua

Sineskeria hauetan omen zuten beren zuztarra, herrialde askotako gatibu eta **atzerritarrei** ilea moztu eta kentzeko ohitura zahar haiek ere. Pello Zabala

2 ***atzerritarren identifikazio zenbaki***

Bestelakoak ere bideratzen dituzte han, tartean **Atzerritarren Identifikazio Zenbakia** eta ikasleentzako agiriak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrotz eta atzerritar (3); **artean atzerritar** (4)

atzerritar asko (10); **atzerritar askok** (3); **atzerritar bahitu** (5); **atzerritar bat** (26); **atzerritar batekin** (7); **atzerritar baten** (7); **atzerritar bati** (5); **atzerritar batzuk** (4); **atzerritar bezala** (5); **atzerritar daude** (4); **atzerritar fitxa betetzen** (5); **atzerritar fitxa izango** (3); **atzerritar fitxak** (4); **atzerritar fitxarik izango** (3); **atzerritar fitxatu** (5); **atzerritar gazteak** (3); **atzerritar gehiago** (5); **atzerritar gehiegi** (6); **atzerritar gehienak** (4); **atzerritar gisa bizi** (8); **atzerritar guztiak** (4); **atzerritar guztien** (4); **atzerritar haiek** (3); **atzerritar hau** (4); **atzerritar hil zituzten** (3); **atzerritar hori** (9); **atzerritar horiek** (5); **atzerritar horri** (3); **atzerritar inguru** (3); **atzerritar kapitalek** (4); **atzerritar kapitalen** (6); **atzerritar kopurua** (4); **atzerritar talde** (3); **atzerritar ugari** (4)

beste atzerritar (4); **beteko atzerritar postua** (3); **bi atzerritar** (7); **bost atzerritar** (4); **den atzerritar** (3); **dira atzerritar** (7); **diren atzerritar** (6); **du atzerritar batek** (3); **du beteko atzerritar** (3); **egiten du atzerritar** (3); **emakume atzerritar** (5); **erromes eta atzerritar** (3); **ez atzerritar** (3); **ez da atzerritar** (3); **ez du atzerritar** (6); **ez dute atzerritar** (3); **hiru atzerritar** (9); **kazetari atzerritar** (3); **langile atzerritar** (6); **lau atzerritar hil** (3); **lau atzerritar izan** (3); **sei atzerritar** (5); **zazpi atzerritar** (5); **ziren atzerritar** (4); **zure ondorengoak atzerritar** (3); **zuten atzerritar** (4)

atzerritarra da (4); **atzerritarra iranikoa** (3); **atzerritarra izan** (4); **atzerritarra siriakoa** (5); **atzerritarra zela** (4); **atzerritarra zen** (3); **den atzerritarra** (4); **duen atzerritarra** (3); **gurtza atzerritarra** (6)

adin txikiko atzerritarrak (3); **atzerritarrak dira** (13); **atzerritarrak edo** (4); **atzerritarrak ere** (5); **atzerritarrak ez** (6); **atzerritarrak fitxatu** (4); **atzerritarrak fitxatzen** (3); **atzerritarrak gehienak** (3); **atzerritarrak izango** (3); **atzerritarrak ziren** (9); **baina atzerritarrak** (4); **bizi diren atzerritarrak** (3); **dira atzerritarrak** (6); **emakume atzerritarrak** (6); **erantzun zuen atzerritarrak** (3); **esan zuen atzerritarrak** (13); **etorritako atzerritarrak** (3); **gehienak atzerritarrak** (8); **horietako asko atzerritarrak** (3); **jokalari atzerritarrak** (3); **langile atzerritarrak** (8); **realeko atzerritarrak** (3); **ziren atzerritarrak** (3)

adingabeko atzerritarrei (3); **atzerritarrei dagozkien** (3); **atzerritarrei ere** (3); **atzerritarrei euren egoera** (3); **atzerritarrei ez** (3); **langile atzerritarrei** (7)

dute atzerritarrek (3); **langile atzerritarrek** (5)

atzerritarrekin hitz (3); **emakume atzerritarrekin** (6)

atzerritarren artean (15); **atzerritarren aurka** (3); **atzerritarren bat** (3); **atzerritarren esku** (6); **atzerritarren eskuetara emango** (3); **atzerritarren eskutik** (4); **atzerritarren kasuan** (3); **atzerritarren kontra** (3); **atzerritarren legea alda** (3); **atzerritarren legea arautegiaren** (4); **atzerritarren legea bertan** (4); **atzerritarren legea indar** (3); **atzerritarren legean** (4); **atzerritarren legeari helegitea** (3); **da atzerritarren** (7); **dabiltzan atzerritarren** (4); **den atzerritarren** (3); **dira atzerritarren** (3); **du espainiako atzerritarren** (3); **duten atzerritarren** (4); **espainiako atzerritarren legea** (9); **espainiako atzerritarren legeak** (5); **espainiako atzerritarren legearen** (7); **langile atzerritarren egoera** (5)

adin txikiko atzerritarrentzat (3)

atzerritarrez bete (3); **atzerritarrez beteta** (4)

---

atzerritartasun **1** *iz* atzerritarra denaren nolakotasuna.

Eta hala, lanbideagatik ez bada, "Secuestrados dos camioneros búlgaros en Bagdad" eta "Dos ciudadanos españoles detenidos en Holanda" irakurriko dugu, hori delako hain zuzen marka nagusia, ciudadano izatea, **atzerritartasuna**. Iñigo Aranbarri

Gakoa orduan zera da: **atzerritartasun** eta arroztasun horretan irautea, gauzenganako maitasuna hartuta bide-erakusle, ez garen eta inoiz izanen ez garen horretarantz abiatzeko. Berria - Kultura

Atzerritar baten begietatik idatzi zuen, baina bere **atzerritartasuna** ezkutatu gabe. Berria - Kultura

2 *iz* estatu baten barnean, beste estatu bateko nazionalitatea izatea; horri dagokion lege egoera.

Horiek guztiak **atzerritartasun** gaiez arduratzen den talde berezikoak ziren. Berria - Euskal Herria

Besteak beste, 230 pakistandar Donostiara joan ziren, baina Espainiako Poliziak harrapatu (**Atzerritartasunaren** esparrua Espainiako poliziari dagokio soilik) eta Biriatura (Lapurdi) eraman zituen inolako abokaturen laguntzarik gabe. Berria - Harian

---

atzerritartu, atzerritartu. atzerritartzen **1** du/da *ad* atzerrira joatea edo eramatea.

Borboi harengan sinesten zuen, atzerritar arrunta eta **atzerritartua** izanagatik ere, eta hiltzeko ere prest zeuden horrelako abenturazale irrigarri baten goranahia asetzearren. Koro Navarro

2 irud/hed

Zeure etxean **atzerritartu** zaituzte. Joxe Azurmendi

---

atzesku *iz* aurreskuan eta beste zenbait dantzatan, sokako azken dantzaria.

Eta nire ametsa dantza hartan aurresku izatea zatekeen arren, atsegin nuen **atzesku** joatea. Edorta Jimenez

---

atzetik **1** *adlag* ondoren, segidan.

Ermuan trena hartuta, gero Zengoiara astoan jaso zuten soinua, bera oinez **atzetik**. Pako Aristi

Hirugarren mundua, tamalez, **atzetik** etorriko da horren bila, desfile eta prozesioetan mando, zaldi eta ardien gorotzak jasotzen dituzten garbitzaile modura, munduko zabor eta gorotz jangarriak norbaitek bildu behar ditu eta. Edorta Agirre

Atzetik doanak leialtasun hori zor dio aurretik doanari, honek hartzen baitu saioaren nondik norakoaren zama. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Atzetik aberatsak izatea leporatzen zieten; hori iraina. Joseba Urteaga

Comolliren iritzian, zinemaren asmakuntzak ez du inolako loturarik zientziarekin, zientzia beti **atzetik** ibiltzen baita asmakuntza praktikoei dagokien guztian, eta asmakuntzek ez dute zuzeneko inolako eraginik zientziaren garapenean. Josu Zabaleta

Gero, aurreko elkarrizketa horien arabera-edo, aldian-aldian egin beharreko lana agindu, hau eta hau konta ezazu; ondoren egindakoa jaso, **atzetik** dena moldatu, eskuzkotik makinara pasa, neurri handi batean baita berridatzi ere seguru asko... Xabier Mendiguren Elizegi

2 *adlag* atzeragoko kokapenean; kirolez mintzatuz, markagailuan galtzen joan.

Atzetik izan zen Dauphineko bi erlojupekoetan, baita sailkapen nagusian ere. Berria - Kirola

Larunbatean **atzetik** aritu arren, ez nuen irabazteko itxaropena galdu. Berria - Kirola

3 *adlag* segika, jazarriz.

Agoazilak edo zituen nonbait **atzetik** eta ez zuen nerekin hitz egiteko betarik hartu. Koldo Izagirre

Duela hamar bat urte polizia **atzetik** ukan dutala arratsalde oso batez, eta segur nintzela "To, doaike enetako dituk..." eta hala, pasatu zen hori. Menane Oxandabaratz

Batera eta bestera ibiltzen dira, ustezko jabeak **atzetik** dituztela. Joxerra Garzia

-Ez al duzu uste gure **atzetik** dabiltzala? Ibon Uribarri

Lilura horietan murgildurik, nire patua, etsaiak **atzetik** dabilzkion gizonaren paradero tristea, ahaztu egin nuen. Juan Garzia

4 ***atze-atzetik***

Harriak bere jomuga iritsi baino lehen, beste harri batek, izugarria hura ere, hegan zeharkatu zuen airea, eta haren **atze-atzetik** beste batek gero. Jon Muñoz

Izarrek distira dardaratia egiten zuten zeru beltzaren **atze-atzetik**. Josu Zabaleta

Lurralde honetan entzun dudanez, ero zentzudun bat omen da Don Kijote nire nagusia; edota zoro irrigarri bat; eta ni ez omen noakio oso **atze-atzetik**. Patxi Ezkiaga

5 ***atzetik aurrera***

Politagoa, baina, hau: jaurtitzaile batek, xabalina gehiegi atzeraturik... jaurtitzeko garaian besoa **atzetik aurrera** indarrez eraman... Karlos Linazasoro

Ane Plaza izeneko emakumerik egongo da munduan -munduko txokoa den Euskal Herri honetan-, baina, hala izanez gero, ohartu al da inoiz izen-abizenek **atzetik aurrera** irakurrita ematen duten azalpenaz? Iñaki Arranz

Aldaparen erdigunea norabide bakarrekoa zen, eta hala, autoak **atzetik aurrera** alderatzen zitzaizkidan. Pedro Alberdi

Eta guztietan txunditurik geratzen zen neska artzainak azaltzen zionean ardi-mozketa **atzetik aurrera** egin behar dela. Xabier Aranburu

6 ***atzetik eman***

Aizu, Eugeni, lagundu Agustini, **atzetik eman** diezadan oraintxe bertan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aitak hartu seme-alaba biak, prakak jaitsi eta **atzetik ematen** die banan-banan. Xabier Mendiguren Elizegi

Beraz eurek ere urrats bat bestearen **atzetik eman** zuten -nabarmendu nuenez. Urtzi Urrutikoetxea

Kontatu egin nion, xehetasun guztiekin, ikasia nuela eta gogotik gustatzen zitzaidala, luze hitz egiten nion **atzetik ematen** zidaten mutilei buruz, gezurretan aritu nintzen pixka bat, apaindu egin nituen kontuak dexente. Karlos Zabala

Neure burua txakurka ikusi nuen eta mutil hura niri **atzetik ematen**, bera gozatzen eta ni zeruraino goratzen. Aitor Arana

"Zertan aritu zarete, elkarri **atzetik ematen**?" Don Jaimek oihu egin nahi zuen, baina eztarri itxiak ez zion aukerarik ematen. Bernardo Atxaga

Ondo -txarto, alegia- portatuz gero **atzetik ematen** ere dezente gozatzen duela esan dit, suabe-suabe hastea sartzen eta gogor jotzea jarraian. Urtzi Urrutikoeetxea

Arrek ere beste horrenbeste egiten dute, hau da, elkarri felazioak egiten dizkiote, elkarri **atzetik ematen** diote eta elkar masturbatzen dute. Luis Elberdin

"Nire astoak **atzetik emango** ahal ziok hire emazteari!". Juan Kruz Igerabide

7 ***atzetik ibili***

Ninfak aditu zuenean nor zen **atzetik ibili** zitzaion jainkoa, lotsagorritu egin zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Noizbait, polizia **atzetik zebilkion** susmoa hartu zuen. Iñaki Zabaleta

Atzetik badabilkie mutiko saldo bat, oihuka eta burlari. Pablo Sastre

Ignaziak ukatu egin zituen anaiarenganaino heldu ziren esamesa haiek, baina atzenean aitortu zuen Karlos **atzetik zebilkiola**, asmo zintzoz ordea. Koro Navarro

Banekien **atzetik zebilzkidala**, baina ez nuen uste Kamal izan zitekeenik, kurdu bat, anaiaren aspaldiko lagun bat. Juan Kruz Igerabide

Igogailutik ateratzean, beirazko ateaz beste aldera, aurreko espaloian, **atzetik ibili** zitzaiona ikusi egin zuen. Jon Alonso

Luxuzko etxe batean arazorik gabe bizi zen, nahiz eta Interpol ustez **atzetik ibili**. Berria - Gaiak

Jende gutxi jabetzen da Pottertarrek bazekitela Zuk Dakizuna **atzetik zebilkiela**. Iñaki Mendiguren

8 ***aurretik eta atzetik***

Farfail horiek -zeinei "diskrezioak" baiteritze- **aurretik eta atzetik** ezkutatzen zuten horrela gorderik gizonaren galbidea ezin ekar zezakeena, nahiz eta hain zuzen ere galbidea hortxe zegoela susmarazten zuten. Jose Morales

Simonek bere aita eta anaien hilobi gainean eraikuntza handi bat eginarazi zuen, urrutitik ikusteko erakoa, **aurretik eta atzetik** harlanduz egina. Elizen arteko biblia

Harlosak alde bietatik idatziak zeuden, **aurretik eta atzetik**: Jainkoak berak eginak ziren harlosak eta haietako idatzia ere Jainkoak zizelkaturiko idatzia zen. Jose Antonio Mujika

Mirariak ez zaizkit sekula absurduak iruditu; **aurretik eta atzetik** doakiena da absurdua. Iban Zaldua

9 *bat bestearen atzetik*

Erretzaile amorratua da Nagoreko apaiza, eta zigarro **bat bestearen atzetik** pipatzen du Itoitzen eta Artozkin bizitakoaz eta ikusitakoaz mintzatzen den bitartean. Edurne Elizondo

Ez nintzen etxetik atera; apenas jan nuen eta, erretzailea banintz, ziur nago zigarro **bat bestearen atzetik** erreko nuela, baina, zorionez edo zoritxarrez, ez naiz erretzailea. Iban Zaldua

10 *bata bestearen atzetik*

Hutsak **bata bestearen atzetik** egin zituzten nafarrek. Berria - Kirola

Izenei antzematen baino gusturago aritzen nintzen ordea haien bizimoduak nolakoak izan ote zitezkeen asmatzen: nor izan zitekeen ezkondua, nor bakarrik bizi zena, nor maitaleak **bata bestearen atzetik** biltzen eta egozten zituena... Xabier Mendiguren Elizegi

Etxeko kontuak **bata bestearen atzetik** datoz. Lutxo Egia

Bata bestearen atzetik, aurreko gaueko mamuak begien aurrean azaltzen hasi zitzaizkidan. Alberto Ladron Arana

Ezta **bata bestearen atzetik** hartu dituen interpretazio desberdinengatik edota filosofiaren historian izan bide duen eraginarengatik ere. Piarres Xarriton

Azken mende erdi honetan zehar munduak hartu duen astinduak, **bata bestearen atzetik** etorri dira eta gerrak, ingurumenari loturiko krisiak, goseteak eta era guztietako mehatxuak, ageri-agerian laga du itxaropenik eza, are gehiago, etorkizun horren berorren ere absentzia bera. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Tximeletak **bata bestearen atzetik** agertu ziren dantzan landare-hesiaren barnetik, eta loratega tximeleta zurien dantza-talde bihurtu zen. Ibon Uribarri

Minutu asko dira, **bata bestearen atzetik** jarriz gero. Arantxa Iturbe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aitaren atzetik** (7); **amaren atzetik** (8); **ate atzetik** (8)
>
> **atzetik abiatu zen** (29); **atzetik abiatu ziren** (12); **atzetik abiatzen** (8); **atzetik agertu** (10); **atzetik ari** (10); **atzetik aritu** (12); **atzetik atera** (16); **atzetik aurrera eginda** (7); **atzetik begira** (13); **atzetik begiratuta** (6); **atzetik begiratzen** (9); **atzetik bere** (12); **atzetik beste bat** (6); **atzetik bi** (8); **atzetik bigarren** (7); **atzetik dabil** (15); **atzetik dabilela** (7); **atzetik dabilen** (8); **atzetik dabiltza** (9); **atzetik dago** (6); **atzetik datorren** (6); **atzetik datoz** (8); **atzetik datozen** (15); **atzetik dauden** (8); **atzetik ditu** (7); **atzetik doa** (10); **atzetik doaz** (9); **atzetik duela** (6); **atzetik edo** (8); **atzetik egin** (17); **atzetik egiten** (9); **atzetik ekin** (6); **atzetik eman** (6); **atzetik ematen** (11); **atzetik ere** (17); **atzetik eta aurretik** (6); **atzetik etorri zen** (7); **atzetik etorri ziren** (16); **atzetik etorri zitzaidan** (9); **atzetik etorriko** (27); **atzetik etorrita** (11); **atzetik etortzen** (8); **atzetik ez** (9); **atzetik harrapatu** (10); **atzetik hasi zen** (8); **atzetik hasten** (6); **atzetik heldu** (12); **atzetik hurbildu** (11); **atzetik ibili behar** (6); **atzetik ibili zen** (9); **atzetik ibili ziren** (6); **atzetik ibiliko** (10); **atzetik ibiltzea** (8); **atzetik ibiltzeko** (6); **atzetik ibiltzen zen** (7); **atzetik ikusi** (8); **atzetik iritsi** (7); **atzetik irten** (18); **atzetik izan** (12); **atzetik izango** (7); **atzetik jarraika** (15); **atzetik jarraitu zion** (13); **atzetik jarraitzeko** (9); **atzetik jarraitzen** (28); **atzetik jarri** (11); **atzetik jo** (18); **atzetik joan behar** (8); **atzetik joan nintzaion** (10); **atzetik joan nintzen** (18); **atzetik joan zen** (49); **atzetik joan ziren** (26); **atzetik joan zitzaion** (26); **atzetik joan zitzaizkion** (8); **atzetik joango** (17); **atzetik joatea** (12); **atzetik joateko** (22); **atzetik korrika** (28); **atzetik lasterka** (30); **atzetik lehiatzen** (6); **atzetik oihuka** (9); **atzetik sailkapenean** (6); **atzetik sailkatu zen** (7); **atzetik sartu** (25); **atzetik sartzen** (6); **atzetik segika** (51); **atzetik segitu** (8); **atzetik zebilela** (14); **atzetik zebilen** (13); **atzetik zebiltzan** (9); **atzetik zetorren** (17); **atzetik zetozen** (17); **atzetik zihoan** (18); **atzetik zihoazen** (13); **atzetik zituela** (23); **atzetik zituen** (6); **atzetik zituztela** (6); **atzetik zuela** (23)
>
> **aurretik edo atzetik** (7); **aurretik eta atzetik** (15); **autoaren atzetik** (6); **bai atzetik** (6); **baina atzetik** (31); **baloiaren atzetik** (8); **bata bestearen atzetik** (251); **batek atzetik** (10); **baten atzetik** (120); **batzuen atzetik** (10); **bera atzetik** (7); **beraien atzetik** (6); **beraren atzetik** (16); **beren atzetik** (9); **besteak atzetik** (9); **bestearen atzetik etorri** (10); **beti atzetik** (8); **deabrua atzetik** (7); **dira atzetik** (8); **ditu atzetik** (14); **du atzetik** (14); **egin zion atzetik** (9); **emakumearen atzetik** (8); **emakumeen atzetik** (8); **erasoen atzetik** (7); **ere atzetik** (15); **euren atzetik** (8); **gero atzetik** (10); **gortinen atzetik** (6); **gure atzetik** (47); **guztiak atzetik** (11); **guztiaren atzetik** (8); **guztien atzetik** (9); **haien atzetik abiatu** (6); **haien atzetik joan** (14); **haren arrastoaren atzetik** (6); **haren atzetik abiatu** (9); **haren atzetik joan** (33); **haren atzetik joaten** (6); **harryren atzetik** (6); **hauen atzetik** (7); **hilkutxaren atzetik** (7); **hire atzetik** (11); **honen atzetik** (15); **horien atzetik** (34); **horren atzetik** (62); **jaunaren atzetik** (6); **markagailuan atzetik** (9); **nesken atzetik** (6); **nik atzetik** (7); **nire atzetik etorri** (10); **norbait atzetik** (9); **oreinaren atzetik** (7); **pausoen atzetik** (7); **polizia atzetik** (15); **ren atzetik** (6); **zela atzetik** (6); **zen atzetik** (8); **zerbaiten atzetik** (9); **zeren atzetik** (9); **zien atzetik** (6); **ziren atzetik** (11); **ziren haren atzetik** (12); **zituen atzetik** (9); **zitzaion atzetik** (10); **zuen atzetik** (17); **zure atzetik** (24)

---

atzetiko 1 *izlag* ondorengoa.

Dama haiek biziki haserretu zitzaizkion, zakarki muturtu ere, bata bestearen **atzetiko** urte haien guztien buruan, baina bizkarrak uzkurtuz eta hotz eta motz hitz eginez mozorrotu zioten euren aurkako bidegabekeria hura. Mirentxu Larrañaga

Eginahalak eta bi egiten zituen artean, bata bestearen **atzetiko** ikuskapenak jasanarazten zizkigun etengabe, eta haiek berekin zekartzaten zigorrak. Mirentxu Larrañaga

Horrekin lotu beharko litzateke, azken aldiko ikerketen arabera, euskalki askotan gertatzen den garaiera edo tonu azentua (ik. José Ignacio Hualde eta bere **atzetikoen** lanak). Lourdes Oñederra

Teoriaz, mota bakoitzak glotiseko dardararik gabeko sudurkari bat, hau da, sudurkari ahoskabe bat du; hala, Eskandinabiar hizkuntzetan ahoskabe baten **atzetiko** m ahoskabe bat badago; frantsesez ere badaude adibide batzuk, baina hiztunek ez dute horietan osagai bereizle bat somatzen. Isabel Arrigain

2 *izlag* atzealdetik egindakoa.

Une hartan, igorlearen izen-deiturak eta helbidea irakurtzen ari zela, bere **atzetiko** begiradaren pisua sumatu zuen. Joxemari Iturralde

Gero banku batean jarri eta eguzkiaren dorre **atzetiko** etzana dastatzen zuten, etorkizunaz eta amodioaz mintzo. Iñaki Zabaleta

---

atzetu, atze(tu), atzetzen da *ad* arroztu.

Urteen joanean, zeharo **atzetu** zen familiako maite-kontuekiko (zeinek, bestetik, ez bide zioten sekula bihotza sakonki ukitu). Juan Garzia

---

atzigarri *(corpusean ez dago; ETCn **101** agerraldi) izond* atzi daitekeena.

Horretarako sortzen dena ahalik eta libreena eta **atzigarriena** egin behar da. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, erlijioaren irakatsiak, irakatsi oro gisa, adimenari zuzentzen zaizkio, eta maila intelektualekoa dena guztiei **atzigarri** gerta dakieke. ETC-literatura, saiakera

Nahi izateen zehaztasun horrek gertakariak zuzen behatu eta interpretatzeko gaitasunean oinarriturik egon beharko luke, zeinak zuzenean **atzigarri** baitzaizkio bakoitzari halakoak ez diren gertakariei buruzko informazioa kritikaren galbahetik pasarazteko. ETC-literatura, saiakera

Beste hitz batzuetan, neuropsikologo kognitibo gehienak gutxi arduratzen dira burmuineko kaltea zehazki kokatzeaz eta gehiago zentratzen dira zer prozesu, funtzio eta errepresentazio diren konputagarriak antzematen eta burmuineko kalte tipo desberdinen azpian dirauten **atzigarri**. ETC-literatura, saiakera

Duela gutxi, hiriburu garrantzitsuenetako kaleak ere **atzigarri** jartzen hasi da: StreetView izena du zerbitzu horrek. ETC-prentsa

Hau da, ordenagailu guztia sarean izatea, mahaigainetik hasi eta aplikazioetaraino, biltegiratzea barne; nabigatzaile baten beharrarekin bakarrik edonondik **atzigarri** izango da. ETC-prentsa

Besteak beste, telefonoaren mahai gainetik musika zerrendetarako lasterbideak sortzeko aukera ematen du; aplikazioaren menuko ataka berri batetik azkeneko abestiak **atzigarri** edukitzea ere ahalbidetzen du. ETC-prentsa

a) Erresistentzia-elkarketa hori zirkuitu batean A eta B puntuen bitartez konektatzen bada, elkarketako beste puntu guztiak elkarketaren barnekoak dira; hots, ez dira **atzigarriak** izango kanpotik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehenengoak oztopoak ekiditeko balioko digu ikusgaitasuna adierazten baitu. public hitz erreserbatua jarri dugu lehendabizi, main metodoa **atzigarri** bihurtzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrek B konputagailua zuzenean **atzigarria** duela atzemango du, eta dagokion txartelaren bidez igorriko dio datagrama. ETC-zientzia, zuzenbidea

Denbora-informazio hori ordenagailu bidez **atzigarria** izan dadin, informazio linguistikoa era normalizatuan aurkeztu behar da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Telebistan, konputagailuan, bideo-jokoan, mugikorrean eta softwarean **atzigarri** dagoen tresna da. ETC-entziklopedia

Makina batek eta berak **atzigarria** duen eta multicast bideratzea onartzen duen bideratzailearen arteko protokoloa da, makinak talde helburuanitzetan duen partehartzea jakinarazteko. ETC-entziklopedia

Horrela, helbide publikoa duen gailu bat **atzigarria** da Internetera konektatutako beste edozein gailutatik. ETC-entziklopedia

---

atzigarritasun *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi) iz* atzigarri izatearen nolakotasuna.

25.2 irudian erakutsiko dugunez, datuen kopiak hainbat lekutan gorde daitezke, **atzigarritasuna**, errendimendua eta fidagarritasuna hobetzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Trukatutako bideei **atzigarritasun** -informazioa deitzen zaie (reachability information) BGP hizkeran. ETC-zientzia, zuzenbidea

Talde, erakunde edo administrazioek kudeatzen dituzten edukiekiko **atzigarritasuna** bermatzeko, Application Programming Interface API irekien sorkuntza bultzatu zen. ETC-entziklopedia

GureGipuzkoan partekatzen diren argazki bildumekiko **atzigarritasuna** erraztuko duten hainbat tresna garatu da, alderdi teknikoaren zein legalaren aldetik. ETC-entziklopedia

Irisgarritasun kontzeptua, **atzigarritasun** edo erabilerraztasun bezala ere ezagutzen da. ETC-entziklopedia

---

atzipe *iz* engainua.

Debeku hori mingarria zen, zeren gure artean, gure buruetako bakoitzean, sekretu itsusi baten pisua pairatzen baikenuen: **atzipe** haren kinkara ekarri gintuen sekretu bera, hark itzali baitzuen gugan, egun batzuk lehenago, erresistitzeko eta are bizitzeko borondate guztia. Juan Garzia

Karlos VII.ak dio jakin duela alderdiek juizioa izatetik hiru, lau eta sei hilabetera apelatzen dutela, erresumako ohituraren kontra, azturen arabera gobernatutako herrialdean; berehala apelatzea agintzen du, salbu eta prokuradorearen iruzurra edo **atzipea** bada, edota apelatzailea aldatzeko arrazoi handi eta nabarmenen bat bada. Iñaki Iñurrieta

Prostata, pentsatu nuen nire kautan, neure barrenak lasaitze aldera, baina banekien **atzipetan** nenbilela. Karlos Linazasoro

---

atzipen 1 *iz* atzematea, harrapatzea.

Kaiolan zeuden lau emeen artetik edozein hautatu zuela, gutxien estimatzen zuen emea, "argotean jostailuzko numeroak esaten zaien horiek baino egiten ez zituenetako bat"; edozer, Elsaren **atzipena** saihestu eta bere izarra babestearren. Harkaitz Cano

Interpretazio honek badu ziurtasun maila bat, izan ere akademikoen eszeptizismoak zirrara sentigarrietatik datorkeen ziurtasun kognoszitiboa defendatzen zutenen jarrerak kritikatu nahi zituen; eta ziurtasun hori adimenezko ezagutzatik, Ideien **atzipenetik** soilik etor daiteke. Imanol Unzurrunzaga

2 *iz* ordenagailuetan eta kidekoetan, memorian edo fitxategi batean dagoen informazioa bilatzeko eta lortzeko ekintza.

Ordenagailuko CD-ROM bat bezalakoa dut gogamena, **atzipen** azkarreko bideozinta bat bezalakoa. Xabier Olarra

Konputagailuaren diseinatzaileak, bada, lastertasun handiko memoria horietariko bat jarriko du maiz beharko den informazio eta instrukzioetara iristeko, baina **atzipen** -denbora luzeagokoa jarriko du -milisegundoak edo are segundoak behar dituena- edukiera handiko memoria. Irene Aldasoro

3 *atzipen sekuentzial (corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Kurtsore-erazagupen batean SCROLL hautazko gako-hitza zehazten denean, kurtsorea **atzipen sekuentzial** hutserako ez diren beste zenbait eratara koka dezakegu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Informatikan, **atzipen sekuentzialak** esan nahi du elementu multzo bat atzitzen dela aurretik zehaztutako ordena jakin batean (elementuak banaka atzitzen dira, bata bestearen ondoren). ETC-entziklopedia

4 *atzipen zuzen (corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Atzipen zuzeneko fitxategiak, edo hash fitxategiak, diskoek helbide jakin bateko blokeak zuzenean atzitzeko duten gaitasuna baliatzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

B erabiltzailea A bezalakoa da, baina ez du irakurlea eta zerbitzaria egikaritzen dituen konputagailuarekin **atzipen zuzenik**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Segida horri i errenkada/zutabearen faktorizazio-bide deritzo, eta berehala kalkula daiteke errenkada bakoitzeko lehenengo elementu ez-nuluaren **atzipen zuzena** ematen duten ohiko biltegiratze-eskemak erabiliz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Periferiko helbidegarria (**atzipen zuzena**) eta berrabilgarria da. ETC-entziklopedia

Hitz baten barruko bit edo byte bakar baten **atzipen zuzena** edo atzipen atomikoko beste primitiba mota batzuk dira adibideetako batzuk. ETC-entziklopedia

5 *ausazko atzipen (corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Honi buruz egindako azterketa baten, **ausazko atzipen** erabilpenean, 2 klaseko txartel batzuk 1,38& MB/s-ko abiadura lortu zuten, probatutako 6 klaseko txartel guztiek, fabrikaitzaile handien txartelak barne, 100 aldiz motelagoak izan zirelarik. ETC-entziklopedia

Disko bat **ausazko atzipena** duen gailu helbideragarri bat da. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *ausazko atzipeneko fitxategi (corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ausazko atzipeneko fitxategia : Bigarren mailako memorian gordetako fitxategi mota, erregistroak zuzenean atzitzeko bidea ematen duena, atzipen-denbora erregistroak fitxategian daukan posiziotik independentea izanik. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *zuzeneko atzipen (corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Zuzeneko atzipen sinpleko metodoak memoriarako dakartzan penalizazioak saihestu nahi dira, bai eta arestian aipatutako aukerek prozesaketari ekartzen dioten penalizazioa ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina programa konplexuagoak egin ahala ahalmen handiagoa behar dugu Sarrera/Irteerari (S/I) begira: mezuetan formatu aberatsagoak erabiltzea, diskoko fitxategiekin lan egitea, **zuzeneko atzipena** eta datu-baseak erabiltzea, Interneteko datuak prozesatzea... ETC-zientzia, zuzenbidea

Erregistroak: Kapazitate txikikoak, **zuzeneko atzipena** eta oso azkarrak (nanosegundo bat baino gutxiago). ETC-entziklopedia

Erabiltzaile moduan berriz, aginduen erabileran mugak ezartzen ditu, eta orokorrean, ez du baimentzen makina baliabideetarako **zuzeneko atzipena**. ETC-entziklopedia

Repositorio geruzaren abstrakzio bat egiten du eta erabiltzaileari **zuzeneko atzipena** ematen dio. ETC-entziklopedia

---

atzipetu, atzipe(tu), atzipetzen du *ad* engainatu.

Baina zuzena al da eskarmenturik ezaz baliaturik limurtu eta **atzipetu** duten gazte bat zigortzea galbidera eraman dutenetako bat bezala? Jose Morales

Gobernuarekin bezalaxe gertatzen da gaur egun patuarekin, badakigu zer den; ohartzen zara alde guztietatik **atzipetu** zaituztela, eta alde egiten duzu. Josu Zabaleta

Anaia, ordea, ez zen lasai geratu, erruki faltsuak **atzipetuta**, eta okerkeria hura proposatzen jarraitu zuen oraindik. Mikel Hernandez Abaitua

Niri jendea **atzipetzea** gustatzen zait. Oskar Arana

-Ekaitz alditan aditzen baita haren dunduri tristea, herria **atzipetuz** etsaiengandik beregandu zituen aberastasun guzien truke, nork aterbe emanen aterik ate hasten denean. Patziku Perurena

---

atzipetzaile *izond/iz* atzipetzen duena.

Aurpegia zafratua nuen hainbat tokitan, eskumuturretan eskuburdinen markak nabari nituen eta zangarteko oinazeak nire gernu arazoak bi **atzipetzaileek** iragarritako une beltza baino lehen gerta zitezkeelako susmotan nindukan. Aingeru Epaltza

---

atzitu, atzi, atzitzen du *ad* atzeman, harrapatu.

Ez al nengoen gezur artean harrapatuta, **atzituta**, giltzapetuta, neure gezurrez laketua eta besteenak harrapatzen ere zaletua? Matías Múgica

Damutzen ziren eta bekatu egiten zuten berriro, eta, antikristoa **atzitzeko** aitzakian, antikristoa ez ziren asko hil zituzten. Jose Morales

Koilarako jangaiak (zopak, eltzekiak, barazkiak) ia erabat desagertu dira-eta, sardexkaz hartu beharrekoak hatzez **atzituko** ditugu. Edorta Agirre

Telefonoa **atzitu**, Komisaldegiko zenbakia markatu eta usadioko ahots gozakaitzari jakinarazi nion Sarasa inspektoreordearekin mintzatu nahi nuela. Aingeru Epaltza

Justizia-jendeak **atzitu** egin zituen, eta Alaini, zeinak elizgizona zela egin baitzuen oihu, ahantzia zitzaion mahuka berdeak erauztea. Juan Garzia

Loak ez zuen **atzitu**, haatik, barnean zebilkion zurrunbiloa poxelu. Xabier Montoia

Miliziakoek gu hirurok **atzitu** gintuzten, Aldo, Guido eta ni, artean erdi lo. Juan Garzia

-Ekin zion ehiztariak lasterrari, baina hala ere adarbakoitzak denbora gutxiren barrunbean **atzitzeko** zorian jarraituko zion. Anjel Lertxundi

---

atzitzaile *iz* norbait edo zerbait atzitzen duen pertsona. ik **atzemaile**.

Gure **atzitzaileak** sartzen ziren bitartean, beta izan nuen burkoaren azpian neukan errebolber koxkorra -zeina, bestetik, ez bainengoen ziur erabiltzen nekienik. Juan Garzia

---

atzitze *iz* atzematea.

Gisa honetan atzemandako otsokumeak askotan ikusi izan ditugu, otarretxo batean darabiltzatela bizirik herriz herri, **atzitze**-sari eske. Anjel Lertxundi

Galdeketan sartu, auzitegi aurrean egon, epailearen aurretik pasa eta libre gelditu direnen aurpegiak jaso, lehenago **atzitze** unean bezala. Iñigo Aranbarri

---

atzizki *iz* hitzaren bukaeran ezartzen den morfema.

Halaber, erroa, bere aldetik, ez da autonomoa; **atzizki** batekiko konbinaketari esker baizik ez da existitzen. Isabel Arrigain

Kasu horietan, hitz moztuak, mozorroak, **atzizkiak** eta aurrizkiak erabil daitezke. Askoren artean

Aditzen jokaerak, sinonimoak, **atzizkiak**, hiztegia, dena pilatzen zaio bere estuasunaren anabasan, eta ikusten du ez duela ikasgai bakoitza sailkatzeko, hausnar egin eta buruz ikasteko astirik izango, bere denbora behar dute-eta ulermen-oroimenek hura guztia "jakinduria" bihurtuko bada. Pako Aristi

"Ismoa, ista" **atzizkiak** ez zaizkit sobera laket, maiz kulturarik ezaren marka diruditelakotz, sinplifikazio esnobak. Piarres Aintziart

Honako bi hauek, bereziki: euskal ezaugarri nabarmen bat edukitzea (desberdintzearren, jakina: **atzizki** jatorren bat, nik zer dakit, deklinabide kasu exotikoren bat...), eta, aldi berean, erdaldunek ere aise konprenitzeko modukoa izatea. Iñigo Aranbarri

Lopez Gaseniren ustez, haur txikientzat hurbilagoa da izen hori, eta deklinazio **atzizkiak** jarrita, irakurtzeko inolako oztoporik ez du ematen gainera. Berria - Kultura

Esango nuke sorta berekoak ere ez direla, "tikan" **atzizki** hori kenduz gero. Andoni Egaña

Kontuan hartu ez dugun beste aukera bat zero morfema ezabatzea litzateke, eta subjektua hirugarren pertsonakoa ez denean aditzak **atzizkirik** ez daukala esatea. Itziar Laka

---

atzo 1 *adlag* gauden egunaren aurreko egunean.

Bai, **atzo** hala, egun hola, eta bihar ez jakin nola! Herria

Atzo gertatu izan balitz bezala gogoratzen du Mabelek. Edurne Elizondo

Atzo bertan interneten nenbilen batetik bestera eta sexu-heziketari buruzko orri batekin topo egin nuen, edozein haurrek topo egin lezakeen bezala. Karlos Zabala

-Atzo galdetu bazenit, nire erantzuna ezezkoa izango zen. Bernardo Atxaga

Atzo ere ezker hegalean jokatu zuen, baina hori ez zen oztopo izan, defentsako lana egiteaz gain, erasoan aritzeko. Berria - Kirola

Atzo bertan, autoaz arduratu hintzen; larunbatean -lekutan geratzen duk- ez huen hura garbitzen amaitu, oinazearen ukabil-kada jaso baihuen urdailean estreinakoz. Eskarne Mujika

Gauza horiek **atzo** gertaturiko kontuak baldin badira, zer espero zitekeen biharko? Iñaki Mendiguren

Orduan beste pixka bat jarri dut azukreontzian, **atzo** alabak eta biok kafeari bota genion, eta handik bi ordura gonbitoka geunden bi-biok ere. Juan Garzia

Kontseilariak **atzo** bilera bat eduki zuen erasoak gertatu diren aldeko herrietako alkateekin. Jon Alonso

Gainera, **atzo** telegrama bat bidali nahi izan nuen Krasnoiarskera, eta ezin izan zen pasa. Karlos Zabala

Han izandako emakume horietako batekin izan nintzen **atzo**. Iban Zaldua

2 *adlag* oraintsu, berriki.

Ez naiz **atzo** jaioa. Javi Cillero

Jadanik errana dizut ez naizela **atzo** sortua. Elena Touyarou

3 ***atzodanik*** *adlag* atzotik aurrera.

Atzodanik gero eta zailagoa da Herbehereetako leku publikoetan erretzea. Berria - Gaiak

Atzodanik alferretan ari naiz baliabideren baten bila: haatik nahi hori ez dezaket mendera. Jon Muñoz

-Beraz, **atzodanik** ez dugu harremanetan jartzerik nire anaia duke handiarekin? Karlos Zabala

-Banekien **atzodanik**, nor izango zen grebalari eta herriko komisaldegian zuen aurkako auzibidea urratu dut, Delbard bahitzea eta langileen lanerako eskubidea trabatzeagatik! Itxaro Borda

Eguraldia betidanik, meteorologia **atzodanik** ... Pello Zabala

Atzodanik abian da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Bilboko Nazioarteko Erakustazokan antolatu duen lanbide heziketari buruzko bigarren azoka. Berria - Euskal Herria

4 ***atzo goizeko*** *izond* (batez ere ezezko esaldietan, indargarri gisa, edo esaldi hanpatuetan, ironiaz)

Ez da, beraz, **atzo goizeko** kontua, ezta bezperakoa ere. Pello Zabala

Zehaztuta azaltzen zen guztia, **atzo goizeko** afera bailitzan. Joxan Elosegi

Aspaldi ekin zitzaion hiperbizkaieraren gaitzari aurre egiten; ez da inondik inora ere **atzo goizeko** kontua. Koldo Zuazo

Ez du **atzo goizekoa** behar sinbologia horrek, ez duenez **atzo goizekoa** behar. Patziku Perurena

-Ez naiz **atzo goizeko** perretxikoa, esan nahi dut. Javi Cillero

Ez da **atzo goizekoa** zuzenekoak bailiran saltzen dizkiguten telesaio aurrez grabatuen asmakuntza. Harkaitz Cano

5 ***atzoko*** 1 *izond* gauden egunaren aurreko egunekoa.

Hor garbi bereizten da elur-gazura, herenegungoa, **atzoko** maluta eta gaurko matazagandik. Pello Zabala

Estaziotik at egiten zuten bigarren ibilaldia zen **atzokoa** bi astronautentzat. Berria - Gaiak

Atzoko gertaerek barne-barnean inarrosi dute. Oskar Arana

Müller jaunak zure **atzoko** jokabidearen berri eman dit, eta heldutasun handia erakutsi duzu. Anjel Lertxundi

-Pasatu zaizu **atzoko** ajea? Xabier Mendiguren Elizegi

Ez nikek **atzokoa** bizi nahi berriro. Antton Olano

-Atzokoa kolpe latza izan da niretzat. Alberto Ladron Arana

Atzoko ikasgaia errepikatuko dugu. Antton Olano

Atzoko etsaien edo bederen populu etsaien adixkidantza, besarkada, baketzearen ondotik, bakea... horiek denak sano dira. Herria

Ala uste duzu gaurko gizakia **atzokoa** bezain berekoia eta krudela ez dela? Josu Zabaleta

Ikusiz santua gero eta santuago egiten zela eta ez ziola **atzoko** irabaziagatik gaurkoari uko egiten, gau batez, santua bere gelatxoan otoitzean ari zela, hiru bider deitu zion. Askoren artean

Eta, gainera, gure Errege zorrez itoa da, kanpoko maileguek lehertu baitute **atzoko** eta egungo gerlengatik. Piarres Xarriton

Funtsean, ez zen **atzokoa** ene... ez dakit nola deitzen den. Daniel Landart

Horrela, gaurkoan ere **atzokoan** egin den ber epaitzen da eta ez daude ageriko judizioetan bestelako aldaketak, argien aurrerakadak eta inguruabarren indarrak sarturikoak baino. Andres Urrutia

Bata, eboluzioaren alde dauzkagun datuak, hau da, gaurko, **atzoko** eta hereneguneko 'fotoak', gero eta ugariagoak, eboluzioa teoria metazientifiko onargarria egiten dutenak, teoria zientifiko zuztardunak deitu ohi ditugun horietakoa. Jenaro Garate

Eta pentsamolde horren jatorria ez da oso antzinakoa, giza ideologiaren historia luzeari erreparatzen badiogu, **atzokoa** da. Iñaki Heras

Atzoko egin behar du marrazketako ariketa eta beldurrez askatu du konpasa kartapaziotik. Eider Rodriguez

6 *atzotik* *adlag* ik **atzo 3**.

Berehala hiri ostia pare bat emateko maneran egonen dela ari duk **atzotik** erran eta erran. Aingeru Epaltza

Aldameneko gizonaren berbek itzartu egin dute Joxan, Coruñako oroitzapenetatik gaurko egunera ekarri, eta, batez ere, **atzotik** Joxani buruan bueltaka dabilkion kontura. Paddy Rekalde

Aspalditik da nire artearen zerbitzuan (baina **atzotik** balitz bezalaxe da) neskame bizkor-bizkor bat, eta gazte bada ere, ez horregatik lanbide honetan berria. Josu Zabaleta

Atzotik hori ere jakina da, eta talde guztiek dakite zein talde utzi behar dituzten atzean NBAko eraztuna irabazi nahi badute. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 21 aldiz agertzen direnak)

abiatu zuen atzo (25); **abokatuak atzo** (23); **adierazi zion atzo** (24); **adierazi zuen atzo** (699); **adierazi zuten atzo** (61); **agentziak atzo** (25); **agertu zen atzo** (192); **agertu ziren atzo** (80); **agertu zuen atzo** (54); **agertu zuten atzo** (24); **agindu zuen atzo** (34); **agintariek atzo** (37); **aguirrek atzo** (32); **aitortu zuen atzo** (65); **aldarrikatu zuen atzo** (25); **alkateak atzo** (29); **aritu zen atzo** (59); **aritu ziren atzo** (60); **armadak atzo** (24); **atera zen atzo** (24); **atera ziren atzo** (33); **atxilotu zituen atzo** (84); **atxilotu zituzten atzo** (50); **atxilotu zuen atzo** (98); **atxilotu zuten atzo** (45)

atzo adierazi zuen (81); **atzo adierazi zuenez** (219); **atzo adierazi zutenez** (29); **atzo aditzera eman** (22); **atzo aguirrek** (22); **atzo aitortu** (28); **atzo al** (41); **atzo alderdi** (26); **atzo alemaniako** (26); **atzo amaitu zen** (34); **atzo ameriketako estatu** (23); **atzo argitaratu** (38); **atzo arnaldo** (27); **atzo arratsaldeko** (50); **atzo arratsean** (40); **atzo arte ez** (21); **atzo aurkeztu zuen** (75); **atzo aurkeztu zuten** (76); **atzo aurkeztutako** (58); **atzo auzitegi** (23); **atzo azaldu zuenez** (119); **atzo azaldu zutenez** (34); **atzo azken** (28); **atzo azpimarratu** (39); **atzo bagdaden** (43); **atzo baieztatu zuen** (21); **atzo baionan** (33); **atzo bartzelonan** (24); **atzo batasunak** (32); **atzo berretsi** (34); **atzo berriro** (24); **atzo berriz** (21); **atzo beste** (54); **atzo bezala** (28); **atzo bi** (75); **atzo bilboko** (63); **atzo bildu** (23); **atzo bizkaiko** (23); **atzo bruselan** (35); **atzo bukatu** (24); **atzo deklaratu** (22); **atzo donostiako** (74); **atzo eaeko** (44); **atzo egin zen** (27); **atzo egin zuen** (64); **atzo egin zuten** (64); **atzo egindako agerraldian** (28); **atzo eginiko** (64); **atzo egun** (26); **atzo ela** (21); **atzo eman zuen** (35); **atzo eman zuten** (22); **atzo emandako** (49); **atzo erabaki** (29); **atzo erantzun** (23); **atzo erresuma batuko** (35); **atzo errusiako** (43); **atzo esan zuen** (110); **atzo esan zuenez** (125); **atzo espainiako auzitegi** (47); **atzo eta gaur** (30); **atzo eta herenegun** (31); **atzo europako batzordeak** (24); **atzo euskal herriko** (34); **atzo eusko jaurlaritzak** (38); **atzo eusko jaurlaritzako** (36); **atzo eusko legebiltzarrean** (27); **atzo ez zen** (28); **atzo ez zuen** (28); **atzo ezagutarazi** (24); **atzo gasteizko** (31); **atzo gauean** (178); **atzo gazan** (33); **atzo goizaldeko** (25); **atzo goizeko** (120); **atzo hainbat** (57); **atzo hartu zuen** (21); **atzo hasi zen** (88); **atzo hasi ziren** (36); **atzo hauteskunde** (23); **atzo herenegun** (45); **atzo hil zen** (64); **atzo hiru** (29); **atzo ilunabarrean** (22); **atzo iragarri zuen** (91); **atzo iragarri zuenez** (56); **atzo iraken** (32); **atzo iritsi zen** (24); **atzo iruñean** (103); **atzo iruñeko** (32); **atzo israelgo armadak** (22); **atzo izan** (58); **atzo izandako** (32); **atzo jakin zen** (23); **atzo jakinarazi zuen** (65); **atzo jakinarazi zuenez** (261); **atzo jakinarazi zutenez** (58); **atzo jakitera eman** (32); **atzo jean** (22); **atzo joan** (24); **atzo jokatu zen** (23); **atzo jose luis** (23); **atzo josu jon** (21); **atzo juan jose** (49); **atzo kaleratu** (30); **atzo kaleratutako** (52); **atzo lehen** (41); **atzo londresen** (36); **atzo lortu** (29); **atzo madrilen** (64); **atzo miren azkarate** (22); **atzo nabarmendu** (27); **atzo nazio batuen** (36); **atzo nazioarteko** (36); **atzo nbe nazio** (26); **atzo ohartarazi** (25); **atzo onartu zuen** (31); **atzo onartutako** (37); **atzo plazaratu** (21); **atzo plazaratutako** (35); **atzo prentsa** (38); **atzo prentsaurrekoan** (29); **atzo pse** (31); **atzo radio euskadin** (24); **atzo salatu zuenez** (29); **atzo the** (21); **atzo turkiako** (23); **atzo zabaldu zuenez** (26); **atzo zabaldu zutenez** (22); **atzo zabaldutako** (37); **atzo zehaztu** (23); **atzo zen** (28)

aurkeztu zituen atzo (42); **aurkeztu zituzten atzo** (25); **aurkeztu zuen atzo** (213); **aurkeztu zuten atzo** (123); **aurkitu zituzten atzo** (34); **aurkitu zuten atzo** (30); **azaldu zen atzo** (35); **azaldu zuen atzo** (231); **azaldu zuten atzo** (43); **azpimarratu zuen atzo** (81); **baieztatu zuen atzo** (72); **baieztatu zuten atzo** (27); **baina atzo ez** (22); **baitzuen atzo** (28); **batean atzo** (32); **batek atzo** (61); **batzordeak atzo** (55); **berak atzo** (25); **berretsi zuen atzo** (126); **berretsi zuten atzo** (22); **bildu zen atzo** (132); **bildu ziren atzo** (217); **bota zuen atzo** (35); **bozeramaileak atzo** (45); **diputatuak atzo** (23); **dira atzo** (34); **donostia atzo** (63); **du atzo** (46); **dute atzo** (35); **ebatzi zuen atzo** (23); **egin zen atzo** (75); **egin zien atzo** (43); **egin zion atzo** (74); **egin zioten atzo** (58); **egin ziren atzo** (42); **egin zituen atzo** (96); **egin zituzten atzo** (89); **egin zuen atzo** (614); **egin zuten atzo** (580); **egon zen atzo** (22); **egunkariak atzo** (71); **elkartu ziren atzo** (32); **eman zien atzo** (26); **eman zion atzo** (71); **eman zioten atzo** (35); **eman zituen atzo** (39); **eman zuen atzo** (292); **eman zuten atzo** (85); **entrenatzaileak atzo** (32); **erabaki zuen atzo** (127); **erabaki zuten atzo** (51); **erakundeak atzo** (58); **erakutsi zuen atzo** (29); **eraman zuten atzo** (25); **erantzun zien atzo** (23); **erantzun zion atzo** (35); **ere atzo** (55); **ertzaintzak atzo** (26); **esan zion atzo** (26); **esan zuen atzo** (910); **esan zuten atzo** (85); **eskaini zuen atzo** (40); **eskaini zuten atzo** (25); **eskatu zien atzo** (65); **eskatu zion atzo** (184); **eskatu zioten atzo** (33); **eskatu zuen atzo** (164); **eskatu zuten atzo** (52); **ez da atzo** (21); **ez zuen atzo** (36); **ezarri zion atzo** (25); **ezarri zuen atzo** (26)

gaitzetsi zuen atzo (42); **galdu zuen atzo** (33); **gaur atzo** (94); **geratu zen atzo** (30); **gertatu zen atzo** (38); **gertatu ziren atzo** (27); **gobernuak atzo** (67); **gogoratu zuen atzo** (21); **hartu zuen atzo** (128); **hartu zuten atzo** (61); **hasi zen atzo** (52); **hasi ziren atzo** (40); **hasi zuen atzo** (27); **hasi zuten atzo** (24); **helarazi zuen atzo** (29); **herenegun eta atzo** (32); **hil zen atzo** (166); **hil ziren atzo** (168); **hil zituen atzo** (69); **hil zituzten atzo** (58); **hil zuten atzo** (44); **hitzartu zuten atzo** (22); **hizpide atzo** (28); **idazkari nagusiak atzo** (34); **irabazi zion atzo** (38); **irabazi zuen atzo** (127); **irabazi zuten atzo** (44); **iragarri zuen atzo** (317); **iragarri zuten atzo** (55); **iritsi zen atzo** (38); **iritsi ziren atzo** (30); **iritzi zion atzo** (27); **iturriek atzo** (29); **izan atzo** (52); **izan zen atzo** (302); **izan ziren atzo** (219); **izan zituen atzo** (38); **izan zituzten atzo** (30); **izan zuen atzo** (155); **izan zuten atzo** (115); **jakinarazi zuen atzo** (293); **jakinarazi zuten atzo** (93); **jarraitu zuten atzo** (21); **jarri zuen atzo** (37); **jaso zuen atzo** (72); **jaso zuten atzo** (23); **jo zuen atzo** (103); **joan zen atzo** (28); **joan ziren atzo** (29); **jokatu zen atzo** (44); **jokatu ziren atzo** (22); **jokatu zuen atzo** (33); **jokatu zuten atzo** (32); **kaleratu zuen atzo** (42); **kideak atzo** (25)

kideek atzo (29); **kontseiluak atzo** (24); **kritikatu zuen atzo** (47); **lehendakariak atzo** (33); **leporatu zion atzo** (31); **lortu zuen atzo** (61); **lortu zuten atzo** (24); **ministerioak atzo** (36); **ministroak atzo** (80); **mintzatu zen atzo** (96); **mintzatu ziren atzo** (21); **nabarmendu zuen atzo** (89); **nabarmendu zuten atzo** (33); **ohartarazi zuen atzo** (102); **ohartarazi zuten atzo** (26); **onartu zuen atzo** (191); **onartu zuten atzo** (31); **ordezkariak atzo** (31); **ordezkariek atzo** (33); **ospatu zuten atzo** (23); **plazaratu zuen atzo** (21); **poliziak atzo** (33); **presidenteak atzo** (69); **proposatu zuen atzo** (35); **sailak atzo** (24); **sailburuak atzo** (43); **salatu zituen atzo** (22); **salatu zuen atzo** (241); **salatu zuten atzo** (99); **sartu ziren atzo** (23); **sinatu zuten atzo** (52); **taldeak atzo** (52); **ukatu zuen atzo** (29); **utzi zituen atzo** (25); **utzi zituzten atzo** (25); **utzi zuen atzo** (78); **utzi zuten atzo** (51)

zabaldu zuen atzo (45); **zabaldu zuten atzo** (42); **zauritu zen atzo** (30); **zauritu ziren atzo** (114); **zauritu zituen atzo** (25); **zegoen atzo** (76); **zehaztu zuen atzo** (45); **zen atzo arratsaldean** (56); **zen atzo goizean** (63); **zeuden atzo** (34); **zieten atzo** (85); **zioen atzo** (43); **zion atzo berriari** (26); **zion atzo espainiako** (27); **ziren atzo arratsaldean** (40); **ziren atzo ere** (21); **ziren atzo goizean** (51); **ziren atzo iluntzean** (21); **zitzaion atzo** (36); **ziurtatu zuen atzo** (43); **zuen atzo aebetako** (24); **zuen atzo arratsaldean** (75); **zuen atzo askatasunak** (22); **zuen atzo bere** (30); **zuen atzo bilbon** (30); **zuen atzo donostian** (35); **zuen atzo eguerdian** (24); **zuen atzo ere** (24); **zuen atzo erresuma** (21); **zuen atzo espainiako** (116); **zuen atzo europako** (62); **zuen atzo eusko** (74); **zuen atzo frantziako** (28); **zuen atzo gasteizen** (28); **zuen atzo gipuzkoako** (26); **zuen atzo goizaldean** (29); **zuen atzo goizean** (87); **zuen atzo iluntzean** (24); **zuen atzo irakeko** (23); **zuen atzo israelgo** (31); **zuen atzo javier** (40); **zuen atzo jose** (43); **zuen atzo joseba** (22); **zuen atzo juan** (47); **zuen atzo nafarroako** (29); **zuen atzo nazio** (23); **zuen atzo patxi** (26); **zuten atzo arratsaldean** (56); **zuten atzo bilbon** (42); **zuten atzo donostian** (28); **zuten atzo eguerdian** (29); **zuten atzo eusko** (22); **zuten atzo goizean** (70); **zuzendariak atzo** (30)

atzoz geroztik (40)

atzodanik ik **atzo 3**.

atzoko ik **atzo 5**.

atzoskol *(ETCn **10** agerraldi, horietatik **7** azken sei urteetan; orobat **azazkal** ETCn **1.744** agerraldi eta **azkazal** ETCn **794** agerraldi) iz* azazkala.

-Pasa kanuto hori, Txapli, **atzoskolak** erre behar dizkik bestela. Unai Iturriaga

---

au *onomat* txakurraren zaunkaren onomatopeia. ik **ttau**.

Hazten jarraitu zuen, eta zakurra bihurtu. **"Au**, **au**, **au"**. Patxi Zubizarreta

---

au pair **1** *adlag/iz* frantsesezko esamoldea, lan domestikoak egitearen truke norbait apopilo hartzearen formula adierazten duena.

Gainera, nire taldeko bertze **au-pair** batzuei adituta, fite endelegatu nuen zein zorionekoa nintzen Corytarrekin. Xabier Montoia

Lehenengo urtean **au-pair** abiatu nintzen, abenturara, independentzia bila eta behin hizkuntza ikasi nuenean, unibertsitatean sartu nintzen filosofia ikasteko. Ana Urkiza

2 irud/hed

Ez diot ordaintzen: **au pair** egiten dugu amodioa. Monika Etxebarria

---

aube *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* amaginarreba.

- Behiak **aubea** hil zidak, ostikoz jota. ETC-literatura, saiakera

---

audientzia **1** *iz* auzitegia. ik **entzutegi**.

Elizek, hortaz, justiziak zituzten, baita gizon libreen gainean ere, eta beren **audientziak** izaten zituzten monarkiaren lehen garaietatik. Iñaki Iñurrieta

Baina **audientzia** gutun bat behar zen prefektuarengana barneratzeko. Karlos Zabala

Audientzia Nazionalean kolaborazioa esaten ziotek! Unai Iturriaga

Espainiako **Audientzia** Nazionalak onartu egin du Iñaki Arietaleaniz presoaren baldintzapeko askatasunaren kontra fiskalak jarritako helegitea. Berria - Euskal Herria

Espainiako **Audientzia** Nazionalak 14 urteko mutiko bat deklaratzera deitu du, "mehatxu terroristak" egitea egotzita. Berria - Mundua

Kanporako agindua emon dio bere lagun isilak buruagaz, Bartzelonako **Audientziako** norbait izan behar zuen. Koldo Izagirre

2 *iz* entzuleak. ik **entzuleria**.

Interes partikularrak dira, beraz, haien sustengu nagusia eta ez beren **audientziaren** onespena edo errefusapena. Txema Ramirez de la Piscina

Audientzia erakartzeaz gain, euskararen normalizazio prozesuan bere ekarpena egitea dagokio. Joxerra Garzia

Badaki **audientzia** gazteenaren konplizitatea lortzen, abesti inprobisatuen erdian Bob Marleyren kantu zati bat, une horretantxe bururatu izan balitzaio bezala botatzen duenean. Harkaitz Cano

Maiz esaten digute **audientziei** gehiegi begiratzen diegula, baina modan dagoena eskaintzen dugu. Berria - Euskal Herria

Programaren xedeak eta helburuak, eta **audientzia**-mailaren garapen arrakastatsua ordu eta erdiz azaldu ondoren, Ana Morena andrearen aurkezpen aski teatrala egin zuen berriro, zeluloideko izar handi bat aurkezten denean bezalaxe, eskuin besoa neurriz kanpo luzatuz. Karlos Linazasoro

Berak esan zezakeenari **audientziak** aditasun pitin bat behintzat emango ziolakoan hitz egin zuen New Yorken. Edorta Jimenez

Kazetaritzaren ikaskuntza zaharra da **audientzia** deitzen dugun multzo itxuragabe hori "partzelatu" behar dela, zatikatu, alegia, atal bakoitzari errelitatearen ikuspegi ezberdinak eskaini ahal izateko. Aingeru Epaltza

Gogoratzen haiz, katedratiko hori, nola kontatu hion hire **audientzia** horri Europa euskal hitza zela? Jokin Muñoz

3 *iz* entzunaldia.

Audientzia pribatu horietan entzule egon ohi zen Pierre Bergeron erregearen eta gorteko geografo ofizialari jakin-nahia piztu zitzaion Pierre-Olivierrek kontatua aditzean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hiru **audientzia** eginen dira zinpeko epaimahaia osatu ahal izateko, eta 33 herritarren artean 12 aukeratuko dira. Berria - Euskal Herria

Audientzia amaitutakoan, gogoetan aritu zen kalifa aldi batez. Jon Arretxe

Egun batean, besalariak asalduran sartu ziren eta Pepponek gidaturik Badia aldera joan ziren denak, eta Pasotti zaharrak leiho batetik eman zien **audientzia**. Koldo Biguri

4 ***Audientzia Nazional***

Espainiako **Audientzia Nazionalak** onartu egin du Iñaki Arietaleaniz presoaren baldintzapeko askatasunaren kontra fiskalak jarritako helegitea. Berria - Euskal Herria

Lloreteko (Katalunia) 14 urteko gazte bat Espainiako **Audientzia Nazionalera** joan zen atzo deklaratzera. Berria - Mundua

Madrilgo epaile batek Gas Naturalen (- %0,45) egin Endesaren (%0,51) Erosteko Eskaintza Publikoa (EEP) traba dezake eta, nahasgarria dirudien arren, ez da **Audientzia Nazionalekoa**. Berria - Ekonomia

Audientzia Nazionalean kolaborazioa esaten ziotek!". Unai Iturriaga

5 ***audientzia publiko***

Isabelle Coutant-Peyre Alain Soleren abokatua haserre agertu zen **audientzia publikoari** zuzendua ez zegoelako. Berria - Mundua

Horietako batean, Diwan-i-Am delakoan - **audientzia publikoen** ganberan-, gotorlekura audientzia eske etorritako jende arruntaren erdian esertzen zen Sha Jahan, gela hartan entzuten zituen bere menekoek ekarritako kexak eta eskakizunak. J.M. Olaizola "Txiliku"

6 ***xede-audientzia*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Populismoak ikuskizunaren logikarekin egiten du bat: **xede-audientziak** ondo identifikatu behar ditu, sakabanaturik eta identitatea galduta dabiltzan ikus-entzuleak batu behar ditu irudi eta ilusio baten baitan. ETC-prentsa

Euskarazko telebistaren lehentasunezko **xede-audientzia** gisa, umeak, gazteak eta euskalduntze-alfabetatzeko ikasleak aipatzen ditu EBPNk eta, programazioa osatzeko, besteak beste, kultur saioak, hizkuntza-ikastaroak, literatur tertuliak eta euskal musika proposatzen ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **audientzia nazionalean** (3); **da audientzia** (4); **espainiako audientzia** (4); **hiru audientzia** (3)

---

audifono *iz* entzumena zuzentzeko gailu elektronikoa, belarrian jartzen dena.

Horiei ere **audifonoak** ez die balio, baina ezin zaie inplante koklearra jarri, gutxi bada ere, zerbait entzuten dutelako. Berria - Gaiak

---

audimetro *iz* irrati- eta telebista-hargailuetan jartzen den tresna, saio bakoitzaren ikus-entzuleen kopurua neurtzeko

erabiltzen dena.

Gorriz agertzen ziren pantailan entzuleriari zegozkion portzentajeak, eta sekula ere ez zen **audimetroa** horren gora egon. Joxan Elosegi

---

audio 1 *iz* entzuteko moduko formatua.

Ikusmenean, ukimenean eta **audioan** oinarritutako interfaze naturalak dira eta Indiako dialekto ezberdinetara egokitzeko gaitasuna dute", zehaztu dute proiektuaren bultzatzaileek. Berria - Gaiak

Audiorik onena: Sortzen Ikasbatuaz elkartearen "Kontu Txikiak". Berria - Euskal Herria

Lehendabizi **audioa** artxibo digital bihurtzen dugu, eta gero editatzen dugu. Berria - Euskal Herria

Xabier Erkiziak **audio** eta musika garaikideko laborategia koordinatuko du, "iazko ekitaldietan bildu zen entzuleen jakin-mina" ase nahirik. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan lehen osagai bezala)

Al Kaeda erakundeko buru Osama Bin Ladenek hauteskundeak boikotatzeko deia egin zien herenegun **audio** zinta baten bitartez. Berria - Mundua

Dena dela, komeni da jakitea, liburu tradizionalaz aparte, gaur egun euskarri gehiago ere badela: mikrofilmak, mikrofitxak, **audio** - edo bideo-zintak, euskarri magnetikoak eta, jakina, telematika. Askoren artean

Tren guztian entzungarri izango den **audio** sistema ere izango dute. Berria - Ekonomia

Kabinako **audio** grabazioaren arabera, irailaren 11n, 09:31n, hegazkina bahituta zegoela jakinarazten zieten ekintzaileek bidaiariei. Berria - Harian

3 ***audio edizio software*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Audio edizio softwarea edo, lagunarteko hizkuntza erregistroan, audio-editorea audio digitala editatzeko erabiltzen den aplikazio informatiko bat da. ETC-entziklopedia

---

audiobisual *(corpusean ez dago; ETCn **91** agerraldi)* *izond* ikus-entzunezkoa.

Astero memoria bidez zabaltzen den **audiobisual** bilduma da. ETC-literatura, saiakera

Eta orduko prentsa idatzian edo **audiobisualean** ere ez dugu aurkitu ez egilearen elkarrizketarik eta ez eta hitzaldiaren edo liburuaren aipamenik. ETC-literatura, saiakera

Bilboko Guggenheimen, ordea, Panza bildumako artista minimalisten lanak (zailak, eta bestela ere bertan daudenak), eta Nam June Paik sortzaile korearraren lan **audiobisualak**. ETC-literatura, saiakera

? Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin elkarlanean, argitalpen bibliografiko, musikal eta **audiobisualen** bibliografia sortu beharko litzateke, hala nola euskal nolakotasun kulturalari aipamen egiten dieten baliabide digitalena. ETC-literatura, saiakera

William Kentridge hegoafrikarraren lan **audiobisualean**, adibidez, Boschen pertsonaien itzalak prozesio batean mugitzen dira zulu abesti baten erritmoan. ETC-prentsa

Horrez gain, presta ditzagun material bereziak, programa mailakatuak, sistema **audiobisual** eraginkorrak, hizkuntza modu natural errazean transmititzeko. ETC-prentsa

Lepoa jokatu behar banu, prentsa idatziak bere lekua izango duela eta geroz eta kultura **audiobisual** handiagora goazela esango nuke. ETC-prentsa

Energiaren kontsumo eraginkor batekin, gure Natura hobeto zaintzeko aholku eta konpromezuak, modulu interaktibo eta **audiobisualen** bitartez. ETC-prentsa

FIPA programa **audiobisualen** festibalaren hogeitabat garren edizioa iraganen da aurten urtarrilaren 22tik 27raino. ETC-prentsa

Nazioartea baldintza **audiobisualetan** eraikitako errealitatea gertatzen ari da; gutxi batzuen kontrolpeko argazkia. ETC-prentsa

Horrez gain, presta ditzagun material bereziak, programa mailakatuak, sistema **audiobisual** eraginkorrak, hizkuntza modu natural errazean transmititzeko. ETC-prentsa

Bere espazio **audiobisualaren** definizio argia eta bere edukien kudeaketa ausartagoa behar ditu ETB1k. ETC-prentsa

Jorge Carrionek Teleshakespeare liburuan (Errata Naturae, 2011), telesailek ekarri duten iraultza **audiobisuala** hartzen du gaitzat. ETC-prentsa

Euskal esparru **audiobisuala**, aldiz, bete-betean sartuta dakusagu bere fase folklorikoan, ETBren ekoizpenak aintzat hartzen baditugu (pilota, trikitia, fandagoa, bertsoak.). ETC-zientzia, zuzenbidea

Guraso etorri berriak ikasgelara gonbida litezke, euren jatorrizko hizkuntza-komunitatearen berri eman dezaten, argazkiak edo bestelako baliabide **audiobisualak** erabilita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Entzumen- eta ikusmen-urritasunen bat duten pertsonei eduki **audiobisualetara** sarbidea ekarri die irisgarritasunak. ETC-zientzia, zuzenbidea

2011n berregin ziren labeak Ramón Garitano arkitektoaren eskutik, trebakuntza-gelak, **audiobisual** gela eta kafetegia gehitzen. ETC-entziklopedia

Hala ere, Arabiera Estandar Modernoa erabiltzen da kultura **audiobisualean**, Latinak inoiz izan ez duen papera. ETC-entziklopedia

Bionikari esker, eskuratze-, erreprodukzio- eta ulermen-eginkizuna burutzen duten sistemak sortu ahal izan dira arlo **audiobisualaren** barnean. ETC-entziklopedia

---

audiobisualki *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *adlag* modu audiobisualean.

Pelikulak beldur asko kentzeko balio izan dit, eta baita gozatzeko ere, **audiobisualki** gozatzeko, erronka asko izan direlako, bai gidoian eta bai bestelako lanetan. ETC-prentsa

---

audiograma *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* entzumenaren nolakotasuna jasotzen duen grafikoa.

Nilsson-en lanen artean aipagarriak dira, besteak beste: "**Audiograma**" (1957), "Frequenzen" (1955-1956), "Szene I, II, III" (1960-1961), "Gösta Oswaldi gutuna" (1961), "Sarrera" (1962) eta "Nazm" (1973). ETC-entziklopedia

---

audiologia *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *iz* entzumena eta entzumenaren arazoak aztertzen dituen medikuntzaren adarra.

Aurreneko egunetan, **audiologiaren** aurrerapenari eskerrak, berebiziko soinu-besta bihurtu zitzaion hiria. ETC-literatura, saiakera

---

audiometria *(corpusean ez dago; ETCn **32** agerraldi)* *iz* entzumena neurtzeko teknika.

Gure **audiometriak** entzumenaren maila bat adierazten du, baina gure aparatuak oso "traketsak" dira, eta gutxi gorabeherakoak. ETC-literatura, saiakera

Hau da, **audiometria** egin ondoren langileak entzumen galeraz jabetzen dira, eta, ondorioz, kalte-ordaina jasotzen dute. ETC-prentsa

Audiometria tonala: Kabina intsonorizatu batean sartu, eta soinu bat entzuten duen bakoitzean besoa altxatzeko eskatuko dio adituak erasandako pertsonari. ETC-prentsa

Zorabioak eragiten dituen kausa edo arrazoi zehatza jakiteko, medikuak hainbat proba diagnostiko egiteko agindu ohi dute: analisiak, elektrokardiogramak, tentsio arteriala neurtzea, **audiometriak**... ETC-prentsa

Ikerlariei iruditzen zaie orain arteko **audiometria** eta hurbilketa estatistikoek ez dutela kontuan hartu dimentsio subjektibo hori. ETC-prentsa

Audiometria, diagnostikoa eta audifonoa probatzeko aukera eskaintzen ditu Instituto Opticok. ETC-prentsa

Diru laguntzen eredu berria dator, publizitatearen banaketaz hitz egiteko garaia da, audientzien neurketa tradizionaletan **audiometria** digitala txertatzeko modu egokiak eta propioak asmatzea erronken artean daude, eta abar. ETC-prentsa

Telebistaren kasuan dagoeneko martxan bazeuden ere lagin soziologiko zehatz baten portaerari buruzko benetako datuak jasotzen zituzten hardware eta software elementuen

erabileran oinarritutako **audiometria** sistemak, eta azterketa soziologikoen metodologiaren ikuspegitik teleikusle aktiboei buruzko datuak hartzeko sistema egokiak zirela. ETC-entziklopedia

---

audiometro *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)* *iz* entzumena neurtzeko tresna.

Gaur egun, audientzia-azterketetan parte hartzen duten etxeetako telebistetan jarritako **audiometroen** bidez, pertsona bakoitzak telebistaren aurrean egiten duen erregistro jarraitua egiten da. ETC-entziklopedia

Baina lehenengo **audiometroak** ipini zituztenean konturatu ziren ikusiena, alde handiarekin, El Precio Justo konkurtsoa zela. ETC-prentsa

Audiometroa , ohe puzgarria, latak mozteko labanak, baita intxaurretatik zukua ateratzeko gai diren gailu magikoak etxeratu barik nola izan bada zoriontsu! ETC-prentsa

Irribarrez eta frantses dotorez alabari agindu dio borobil bat marrazteko, oin puntetan ibiltzeko, orpo gainean, **audiometroaren** kaskoak jantzi eta zaratak entzuten dituenean eskuineko eskua edo ezkerrekoa, dagokiona, altxatzeko. ETC-prentsa

Egia da eskapu egiteko aukerak erabat mugatuak direla eta **audiometroa** duen telebista piztuta edukitzearekin nahikoa dela zenbatekoaren portzentajeetan sartzeko. ETC-prentsa

Erantzuna **audiometroan** bilatu ohi da: hori omen da ikus-entzuleek nahi dutena. ETC-prentsa

---

auditore 1 *iz* enpresa edo erakunde bateko diru kontuak ikuskatzen dituen pertsona. ik **ikuskari**; **ikuskatzaile**.

auditoreak eskatzen duenerako. Xabier Olarra

Haren gainean karpetaz osaturiko bi zutaberen artean ageri zen Potzoloren burua, purgatorioko kontuhartzaile, enpresa ezinezko bateko **auditore**. Aingeru Epaltza

Hitz lauz eta soilez enpresen egoera azaltzeak behar luke kontabilitate, **auditore** eta enparauen helburu. Berria - Ekonomia

2 *kontu auditore* *(corpusean ez dago; ETCn **55** agerraldi)*

SPRIk eta Zinpeko **Kontu Auditoreen** Institutuko EAEko ordezkariek akordioa sinatu zuten atzo, Internet bidezko salerosketetan segurtasuna hobetzeko xedez. ETC-prentsa

Tubos Reunidos egoera zailean dagoela agerian gelditu da, berriz ere, PwC **kontu auditoreak** tutugilearen iazko kontuei buruz egindako txostenean, zeina herenegun erregistratu baitzen CNMV Balore Merkatuaren Espainiako Batzordean. ETC-prentsa

Batzarako deialdia egiten denean, akziodunen esku utzi behar da sozietatearen **kontu-auditoreak** emandako ziurtagiria, 144. artikuluaren lehenengo paragrafoaren c) letran ezartzen denaren arabera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontu-auditoreek atzerrian aztertzen badituzte justifikazio-kontuak, azterketa egiten den herrialdean jarduten duten auditoreek egin ahalko dute azterketa hori, baldin eta herrialde horretan lanbidean jarduteko habilitazio-araubidea badago. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *kontuen auditore* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

2010eko **kontuen auditoreak** aukeratzea: lks auditores sl proposatzen da. ETC-prentsa

ROACen izena emanda daukaten **kontuen auditoreek** prestakuntza jarraituko ikastaroak egin beharko dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

a **Kontuen Auditoreen** Errolda Ofizialak, interesa daukanak horrela eskatzekotan,... zerrenda eguneratua emango du. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

auditoretza *iz* auditoria.

Auditoriumaren "kontrolik eza" dela-eta, udal taldeak **auditoretza** eskatuko dio Nafarroako Gobernuari, eta ondoren "ardurak" exijituko dituztela iragarri zuen Mendibek, UPNko zazpi zinegotzien izenean. Berria - Kultura

---

auditoria 1 *iz* enpresa edo erakunde bateko diru kontuak ikuskatzeko lana.

Auditoria , normalizazio eta sinestamendu ereduak ere proposatu izan dira, nolabaiteko seriotasuna ematen omen diotelako, nahiz eta ezaguna den sinestamendu eta **auditoria** prozesu horien inguruan ere iruzurrak baduela lekurik, eta ez txikia gainera (galdetu bestela Enroneko langile eta akziodunei). Iñaki Heras

Bruselak martxoan jakinaraziko duen proposamen horretan, **auditorien** gainean gobernuen politikak indartu asmo ditu. Berria - Ekonomia

Borreroari joan den urtean egin zitzaion **auditorian** , dena behar bezala zegoela frogatu ahal izan zuten (beti bezala, bestalde): txostenek adierazten zuten adina ziren exekutatuak, ez bat gehiago, ez bat gutxiago. Karlos Linazasoro

Greziako oraingo gobernuak eman du arazoaren berri, kontu publikoen **auditoria** egin ondoren. Berria - Ekonomia

2 *auditoria soziolaboral* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Auditoria soziolaborala enpresen eskura dagoen analisi erreminta bat da, eta aukera ematen du jarduera eta prozesuei buruzko informazioa lortzeko, kudeatzeko eta zuzentzeko. ETC-entziklopedia

3 *kontuen auditoria* *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Kontuen auditoria urteko Kontuen, nahiz beste finantza orri edo kontabilitate agirien, berrikuspen eta egiaztapenean oinarritzen den jarduera da. ETC-entziklopedia

Aplikatzekoa den araudiarekin bat, **kontuen auditoria** egitera behartuta dauden sozietate publikoek auditoria eta kontrol batzorde bat eratu beharko dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Atzo zuen diru **kontuen auditoria** erakusteko eguna, eta Frantziako Federazioko kideekin ere bildu zen. ETC-prentsa

Eta badago beste bat hauteskunde ostean udalbatza berriak udal **kontuen auditoria** egiteko aukera izan dezan. ETC-prentsa

Udalak **kontuen auditoria** egitea oztopatu izanak uste hori indartu dio koalizioari, eta berriz eskatu du ikerketa sakona. ETC-prentsa

Beristainek, besteak beste, AEKn ibili izan zenean diru **kontuen auditoriak** egin izan zirela azaldu zuen, eta ezinezkoa izango zitzaiola legez kanpoko ezer finantzatzea. ETC-prentsa

Ikertzaile modura **kontuen auditoria** eta sektore publikoaren kudeaketa eta kontularitza landu ditu, batez ere. ETC-prentsa

Bagenekien **kontuen auditoriaren** berri, baina ez dugu ezer esan nahi izan, ez daukagulako azkeneko emaitza, baina hedabideetara atera da partidak erosi izanaren berria, eta horregatik azaldu gara gaur hemen. ETC-prentsa

4 *kontu auditoria* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Egun Deustuko unibertsitateko dekanoa eta Kontabilitate eta **Kontu Auditoriarako** Institutuko kidea da. ETC-prentsa

Kontu-auditoriak ere egin ahal izango ditu, xede berarekin, bere kabuz edo kanpoko entitate independenteak kontratatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

auditorio[1] *iz* entzuleak. ik **entzuleria**.

Auditorio bakoitzari berea ematean dago arrakastaren gakoa. Joxerra Garzia

Parabola kulturala izan daiteke hori ere: gure giro kulturalean hobeto dagokio **auditorio** bati piper beteak saltzen dituen denda, demagun, fonoteka bat baino. Ramon Saizarbitoria

---

auditorio[2] ik **auditorium**.

---

auditorium *(orobat **auditorio**) iz* kontzertu, kultura-ekitaldi eta kidekoetarako prestaturiko aretoa.

Eta, hala, hiru hilabeteren buruan, moldatzen zen erietxean batetik besterako bidea bilatzeko; kafetegira, zinemara, **auditoriumera**, patiora iristeko, horiek baitzituen leku kuttunenak. Xabier Olarra

Saltoki handia hiriburuaren erdian kokatu dute, Baluarte **auditoriumaren** aurrean. Berria - Harian

Auditoriuma egiteko 50 milioi eurotik gora beharko ditu Gasteizko Udalak. Berria - Kultura

Eserlekuak oso arin ari ziren betetzen eta hots atsegin bat zegoen **auditorioan**. Irene Aldasoro

Auditorioaren oinarrizko proiektua egiteko, 34 milioi ziren, baina Musikaren eta Arte Eszenikoen Jauregia egiteak gehiago balio du. Berria - Kultura

Tenerifeko **auditorioa** berria da, Santiago Calatravak egina, eta joan den udan inauguratu zutenetik sona handia hartzen ari da. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **auditoriuma eraikitzeko** (3); **donostiako kursaal auditoriuma** (4); **kursaaleko auditoriuma** (6)
> **donostiako kursaal auditoriumean** (6); **donostiako kursaaleko auditoriumean** (6)
> **kursaaleko auditoriumeko** (3)

---

audizio *iz* musikaz mintzatuz, entzunaldia.

Baina usu, **audizio** bat egiten dutelarik, puntekin eskatzen diete **audizioa**, eta guk baztertua genuen, baina bigarren aldian sartuko dugu. Berria - Kultura

Kontzertuen grabazioak, bideoak, **audizioak**, instalazioak, eta, antolatzaileen definizioari jarraituz, "airean geratu diren oroitzapen musikalak" Berria - Kultura

2003aren bukaeran egin nuen **audizioa**, Madrilen. Berria - Kultura

---

aufa *interj* poza adierazteko hitza. ik **ufa**[1].

Aufa. Fernando Morillo

---

augita *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi) iz* kare eta magnesiozko silikato bikoitzez osaturiko minerala.

Taldekide arruntena **augita** da, mineral beltza eta opakua da, ia-ia 90ºtan mozten duten exfoliazio bidimentsionala daukana. Magnesio eta burdinez loturiko tetraedroz osaturiko kristal egitura dauka. Siliko-oxigeno loturak silikatoak lotzen dituzten loturak baino gogorragoak direnez, **augita** silikato kateengan paraleloki esfoliatzen da. **Augita** basaltoaren mineral nagusienetakoa da. ETC-entziklopedia

Aegirina-**augita** seriean sodioa kaltzio eta Fe2arekin trukatzen da eta magnesioa Fe3-arekin, karga balantzatzeko. ETC-entziklopedia

Basalto mota honetan piroxenoak (**augita** eta pigeonita), kaltziodun plagioklasa eta magnetita aurkitu ohi dira. ETC-entziklopedia

Bestalde, talken ondorioz sortu ohi diren feldespato eta **augita** elementuak ageri dira, baita talkaren ondoriozko coesita ere. ETC-entziklopedia

Andesita eta erriolitaren arteko konposaketa du eta anesita bezala batez ere plagioklasaz osatua dago, biotita, hornblenda, **augita** eta enstatita izan ohi ditu. ETC-entziklopedia

Batzuetan **augita** bezalako olibinoak ditu; kasu horietan ferrodiorita izenez ezagutzen da, gabroetarako erdibideko pausua. ETC-entziklopedia

Hauen adibideak **augita**, diopsidoa eta espodumenoa dira. ETC-entziklopedia

---

augure *(orobat **augur**) iz* igarlea.

Mary Ann **augure** ona izango litzateke. Bernardo Atxaga

Erromatarren artean ohitura zen, garrantzi handiko egintza edo eginbehar bati ekin aurretik, **augur** edo estatuaren igarleengandik arrastoren bat lortzea, emaitza gertagarrienari buruz. Xabier Olarra

Aspaldiko urteetan lantzen ari zen poema baten "**Augure**-Kantu", "Atari-Kantu" edo besterik gabe "Hitzaurre-Kantu" delakoan bildurik omen zeuden. Juan Garzia

---

augurio *iz* seinalea, zantzua.

Lehenengo konpainia ahal bezain arin abiatu zen, Widfararen **augurioak augurio**, iluntasuna sakona baitzen oraindik. Agustin Otsoa

Ruper Ordorikaren doinuek jaso zuten **augurio** ona, Fas Fatum kantuko hitzekin jarraituz emanaldia. Berria - Kultura

Nire izen halaber urdinaren hautapenak, Thule lips, **augurio** on baten kutsua hartzen zuen hartara. Bernardo Atxaga

Grima ez da zantzu edo **augurio** bat, heriotzaren eragilea da! Iñaki Mendiguren

Antzinako Grezian, ezein errege ez zen ausartzen ekinaldirik txikienera ere **augurioek** zer zioten aurrez jakin gabe. Juan Garzia

---

augusto *izond* begirune handia eta benerazioa merezi duena.

Bere imajinarioa asmatu behar baitzaio "Nazio espainol" berriari, haren nortasun **augusto** imajinatuaren duina alegia, mistikoa, ezen ez historiko, ez soziologiko eta ez politiko erreala, ezpada bai historia eta bai errealitate politikoa xede horrekintxe likitsenik bortxatzen dituena mitoaren zerbitzuan. Joxe Azurmendi

---

auhaldu, auhal, auhaltzen du *ad* afaldu.

Euskal Etxean **auhalduz**. Herria

Desiraz eta antsiaz, bezperako urrats zoroen errepikatzera Lili Marlen deitzen dut: ibili, **auhaldu**, metroaren zerragia metalikoak klaskan herstear daudela, doi-doia salbaturik lurpetik atera lasterka eta hatsanka [...]. Itxaro Borda

---

auhari *iz* afaria.

Lagungarri zetorkigun ardoak ez zigun kalterik egin, are gutxiago **auhariaren** bururatzeko jazarri zitzaigun etxe gasna estimatuak. Itxaro Borda

Auhari denboran, egunaren barneko gora beheren bilduma, partaide guzier egina izanen duzu. Herria

---

auhen 1 *iz* atsekabearen edo ondikoaren adierazpena.

Euskaltzain adinduak dolorezko **auhen** luzea hegaldarazi zuen. Itxaro Borda

Haur baten **auhena** indarge iritsi zen tabikearen beste aldetik. Lopez de Arana

Auhen min bat eginez altxa naiz. Jon Muñoz

Auhen moduko bat nahastu da tartean, gero eta ahulago, isildu den arte, eta berriz agertu dira ehiztariak. Urtzi Urrutikoetxea

Enrietak **auhen** bat ito zuen, eta besoak ireki zizkionean, Joantto bertan babestu zen. Elena Touyarou

Goruaren **auhen** luze eta xuabeak bere onetik atera zuen Yusuf. Fernando Rey

Bagoitik **auhenak** altxatzen dira, hil zorian direnen korrokak. Michel Oronoz

Gau hartan, esnatu eta **auhen** eta zarata entzun zuenez gero, amaren logelara hurbildu zen. Joseba Sarrionandia

2 ***auhen egin***

- **auhen egin** zuen. Lopez de Arana

Zeure baitara etorririk gogoeta egin ahal bazeneza une batez, berehala ulertuko zenuke bozkariotan egon behar zenukeela, **auhen egin** ordez. Jon Muñoz

Jackek **auhen egiten** du, aulkian esertzen da, lur jota, eta aurpegia eskuen artean ezkutatzen du. Antton Olano

Gringo apurtxo batez **auhen egin** eta gero seko geratu zen. Koldo Biguri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **auhen bat** (8); **auhen batean** (4); **auhen egin zuen** (3); **auhen egiten** (3); **auhen luzea** (4); **auhen txiki** (3)

---

auhenaka ik **auhenka**.

---

auhendagarri *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) izond* negargarria, deitoragarria.

Sorpresak, gertakariak gehiago ziren lehengo libertimenduetan, memento arraro horietaz kondatuko dute hauek edo haiek nasai baina gehienetan prestaketa eskasez zozokeriak egiten ziren plazan, geretarik gabe zebilen aktoreak edaten zuen kuraia emateko eta... astakeria **auhendagarriak** eskaintzen. ETC-literatura, saiakera

---

auhendari *iz* hiletaria, erostaria.

Eta ikusi zituenean anaiaren eta ilobaren gorpuak jauregiko sala nagusian, deiadarka eta heiagoraka ari zirèn **auhendariak** isilarazi, eta honela solastatu zitzaion amari, aita Bartolome eta bion aitzinean: Joan Mari Irigoien

---

auhendatu *(orobat **auhenkatu**)* , auhenda, auhendatzen du *ad* zerbaitek eragindako atsekabea adierazi.

- **auhendatu** zuen Royk. Lopez de Arana

Errateko dizudan gauza bakarra da ezen, hark artarik eman dien emakume orotarik, arrakasta izan edo ez, bat bakarra ere ez dela harez **auhendatu** behar izan ez duenik. Jon Muñoz

Oroit, Leopardi-k **auhendatua** zuela italiar "arrazaendekatua", arbasoen ereduari lotzera deituz berzutitzeko. Joxe Azurmendi

Hara-honaka presatuan zinpurtzen ziren gazte talde bati beha geratu zen eta Iker **auhenkatu** zuen. Itxaro Borda

---

auhengarri *izond* negargarria.

Eta geroztik Jainkoaren zigorradak badabiltza Europako eskualde gehienetan, eta guziz gure Frantzia maite **auhengarrian** . Xipri Arbelbide

---

auhenka *adlag* auhen eginez.

Eta hilkorrek, ez orain baino gehiago orduan ere, **auhenka** uzten zuten biziaren argi gozoa. Xabier Amuriza

Hilik irudi, **auhenka** hasi zaizue, higitu duzuelarik. Xabier Montoia

Klarinetea **auhenka** dabil. Xabier Paya

Ama puzka, **auhenka** eta mehatxuka etorriko da umearen bila, eta lasaitu eginen da umea aldamenera itzuliko zaionean, edoskitzera, sudurretatik esnea dariola. Joseba Sarrionandia

Alabaina, berehalakoan **auhenka** ari zen, eskuei ero baten pare eraginez. Patxi Zubizarreta

Teresa ilargiari **auhenka** edukizarazi zuena orduz geroko bere bizialdi osoan, sukarretan, bera ere, David, **auhenka** edukiarazi duen sukar berean. Oskar Arana

Areago, mesede ere egingo dio hutsetik hasten dela pentsatzeak, Bartzelonaren aurkako partidaz geroztik gertatu denari erreparatuta, **auhenka** eta kexuka ibilita, jarraitzaileen ezkortasunari begiratuta, ez du eta ezer lortuko. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **auhenka ari zen** (5); **auhenka hasi** (4); **oihana auhenka** (6)

---

auhenkatu ik **auhendatu**.

---

auher ik **alfer**.

---

auka *iz* alga.

Ontzi bietako urpeko aldeak berdintsu imajinatu ahal nituen bi-biak; itsasoko belarrez, **auka** txikiz, zuretako mangolino janezinez, txirlatxo ezgauzez eta halakoez estalita eta uretako mamarruek plagatuta. Edorta Jimenez

---

aukera 1 *iz* hautatzea; horren ondorioa; hauta daitezkeen gauzetako bakoitza.

Norberaren nagusien mende egotea da 'bigarren **aukera** onena'; baina 'bigarren **aukera** onena' den hau guztietan onena gertatu zen Erromatar Inperioaren gure egungo

esperientzian. Iñaki Mendiguren

Nire amak, hasieratik bertatik, saihestu izan zuen haiekiko harreman oro, eta haurrekin hitz egitea debekatu zidan, haiek nirekin mendeku hartzeko edozein **aukera** baliatzen zutelarik. Eduardo Matauko

Gauzak horrela, bi **aukera** daude. Piarres Xarriton

Horrelako zerbait esanen zion Antxonek, ez zituen **aukerak** lardaskatzen. Koldo Izagirre

Kirola egitera dedikatzeko dena utzi duen igerilaria legez, hura zen nire froga definitiboa, irabazi edo galdu ziren **aukera** bakarrak. Eider Rodriguez

Handik irteteko, bi **aukera** baino ez zituzten: kartzela edo heriotza. Jon Maia

Beste **aukera** bat eskaintzen zion bizitzak, iraganeko kalteak konpontzeko beste abagune bat, bere burua erredimitzeko bide bat. Aritz Gorrotxategi

Karrera hori zehazki zer zen jakin gabe egindako **aukera** izan zen, euskaltzaletasunak bultzatutakoa, ohartu gabe euskararen osasunerako beharbada premiazkoagoak direla topografo euskaldunak edo odontologo euskaldunak, filologo euskaldun gehiago baino. Xabier Mendiguren Elizegi

Horregatik, eskertu behar diegu egileari eta editoreari egin duten **aukera**, alegia Iparraldeko hitzak eta erranak bere horretan uztea. Janbattitt Dirassar

2 *iz* hauta daitezkeen gauzen multzoa.

Hirugarren, arrazionalki jokatzean gizakia mintzakide baliozkoen premian aurkitzen baita, zeinek jardute arrazional horren ariketa eta garapenerako **aukera** eskainiko dioten. Piarres Xarriton

Nire lokietan eta ukabiletan, zainen marra delikatua ikus dezakezue, horretarako **aukerarik** baduzue behinik behin. Eskarne Mujika

-Aztala erakusteko **aukera** ukanen zuen -ziostan markesak, pasadizoa kontatzen zidala-, ederra zeukan eta. Koldo Izagirre

Eta beraz ez genuen, ez aintzina, ez gibelera joaiteko **aukerarik**, arriskua gero eta handiagoa. Menane Oxandabaratz

Hogei minuturen buruan nire trena ailegatuko da munizioz betea eta nik zerbait handi egiteko **aukera** izanen dut, dagoeneko ez naizelako lirio zimel bat. Fernando Rey

Akitua dago, eta bideak gelditzeko **aukera** eman dio. Pello Lizarralde

Artikulu asko idatzita bidaltzen zizkiotela, bere horretan sartzeko; ez zuela gidoitik ateratzeko inolako **aukerarik**; aldizkariak ez zuela inolako presentziarik; erabiltzen ari ote ziren. Alberto Barandiaren

Ahmeten zigorra bukatzean ere, Gülbaharrek ez zuen **aukera** txikiena ere izanen berriz ikusteko, ezta urrutitik ere. Fernando Rey

3 *iz* zerbait egiteko gertatzen den ahala edo egokiera. ik **mentura**.

Badira Europan **aukera** hori ematen duten erakundeak. Askoren artean

Haiekin solasteko eta egoteko **aukera** paregabean da. Jose Angel Irigaray

Gau batean, ordea, lanean ari nintzen herrian zegoen Leich izeneko neska batekin hitz egiteko **aukera** izan nuen. Josu Zabaleta

Aitak aldiz ez zuen tiratzeko **aukera** edo xantzarik ukan! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Police marka zekarren biribilean ziuntan kokatu zen eta irudi zitzaidan ez nuela gehiago haren gurutzatzeko **aukerarik** ukanen. Itxaro Borda

4 ***aukera anitzeko galdera*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Ariketa hauen helburua hauxe da: ikasleak **aukera anitzeko galderei** erantzuna ematen trebatzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oro har, testu-ulermena lantzeko eta ebaluatzeko **aukera anitzeko galderak** eta galdera irekiak erabili ohi dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hezitzaile elebidunik ez badago eskura, lehen hizkuntzan idatzitako argibide sorta bat presta daiteke ikasleari eskatzeko ataza batzuk egin ditzala, hala nola "Marraztu bat", edo **aukera anitzeko galderei** erantzun diezaiela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Likert eskalak **aukera anitzeko galderak** izaten dira, normalean baieztapen batekiko adostasuna edo desadostasuna adierazteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tresna hori erabiliz, mota ezberdinetako ariketak sor daitezke, adibidez, **aukera anitzeko galderak**, hutsuneak bete motako ariketak edo ikasleak elementuen ordena zuzena erabaki behar duen motako ariketak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eduki interaktiboen gabeziak: hutsuneak betetzea, **aukera anitzeko galderak**, egia-gezurra formatuko galderak, scorm galdetegiak, Geogebra jarduerak etab. ETC-entziklopedia

5 ***aukera anitzeko proba*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

6. testa, irudiak bukatu beharrekoa, jaiotzetiko adimena neurtzeko Alfa testeko **aukera anitzeko probaren** analogo irudiduna da. ETC-literatura, saiakera

Aukera anitzeko probak, parekatzekoak, egia-gezurra erakoak, ordenatzekoak, osatzekoak, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***aukera aske***

Esakune problematikoa, beraz, (objektiboa ez den) ahalgarritasun logikoa baino adierazten ez duena da, h.d., halako esakunea onartzeko **aukera askea**, bere hautazko onarpen soila adimenean. Ibon Uribarri

7 ***aukera-aukeran*** *adlag aukeran*-en indargarria.

Aukera-aukeran, hobe hirugarrena ondo deskantsatuta egotea beste une batzuetarako. Arantxa Iturbe

-Aukera-aukeran etorri zaizu dirua, nonbait -aipatu zuen, garratz. Anton Garikano

Kasinora joateko denborarik ez dutenek eta txerritxo ehiztariek, arazoak dituen Suitzako Adecco (% 8,68) aldi baterako lan enpresaren akzioak dituzte **aukera-aukeran**. Berria - Ekonomia

8 ***aukera berdintasun***

"Euskal Eskola Publikoak helburu handi eta nagusi bat du gure erkidegoan: gure seme-alaben, gazteen **aukera berdintasuna** ziurtatzea», nabarmendu zuen Iztuetak. Berria - Euskal Herria

Gatazkaren konponbidea, bakebidea, **aukera berdintasuna** bermatzea. Berria - Harian

Herenegun gauean legebiltzarkideek Lehen Lan Kontratua (CPE) onartu ostean, **Aukera Berdintasunerako** Legearen eztabaidak aurrera jarraitzen zuen, ezkerreko alderdien oposizio sendoarekin. Berria - Ekonomia

Zentzu horretan, emakumeen egoera oso larria dela zehaztu eta enpleguan **aukera berdintasuna** sustatu behar dela ohartarazi zuen. Berria - Mundua

"Euskal literatura sortzeko, kritikatzeko eta irakasteko, aitaren eta amaren etxea defendatzeko, **aukera berdintasuna** ezinbestekoa» dela nabarmendu zuten Muñozek, Arrietak eta Retolazak. Berria - Kultura

Garapen ekonomikoa, labur esanda, gizarte aldaketaren prozesua da, bai gizarte, politika edo ekonomia arloan, oro har, ongizatea areagotuz gertatzen dena, eta gizartean **aukera berdintasunerako** joera gailentzen duena. Iñaki Heras

Eskubide eta **aukera berdintasunera**, alegia. Arantxa Iturbe

Aukera-berdintasuna denontzat. Lopez de Arana

Garapena aipatzean **aukera berdintasuna**, ez derrigorrean lorpenena, ziurtatzea ulertzen duten sektoreak ere baditugu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Askoz funtsezkoagoa da haientzat emakumeen **aukera-berdintasuna** gizartean, eta kexua azaldu didate puntu horretara helduta. Jon Arretxe

Aukera berdintasuna eta bereizkeriarik eza bermatuak egon behar dute, jakina, baina horretarako, dirulaguntzak eta epe luzerako maileguak erabil daitezke. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gobernutik bertatik, Azouz Begag **Aukera Berdintasunerako** ministroak berehala gaztigua: "Ezin zaie gazteei jendaila nazkagarri deitu". Iñigo Aranbarri

Aukera-berdintasuna aukeradunentzat da; badakigu hori dena, baina ezjakinaren plantak egiten ditugu Jon Muñoz

9 ***aukera galdu***[1] du *ad*

Berriro itsasoratu ginen, eta nire gizonen kemena urrituz zihoan, arraun eta arraun, itzultzeko **aukera galdurik**. Juan Kruz Igerabide

Isilpean, ezkutuan, desagertu nahi zenuen, baina **aukera galdu** duzu. Sonia Gonzalez

Badakigu final bat galtzea zer den, eta oraingoan ezin dugu **aukera galdu**. Berria - Kirola

10 ***aukera galdu***[2] *iz*

Aukera galduak, berriz ere. Berria - Kirola

Niri eztena sartzeko **aukera galduaren** damua noski. Aingeru Epaltza

Uda amaiera hartan, egunak arin zihoazenan eta une bakoitza elkar ezagutzeko **aukera galdua** iruditzen zitzaigunan. Javi Cillero

Berriro itsasoratu ginen, eta nire gizonen kemena urrituz zihoan, arraun eta arraun, itzultzeko **aukera galdurik**. Juan Kruz Igerabide

11 *aukera kostu*

Baina EBZk egun bakarreko tasa soilik kontrolatzen du, diruaren egun bakarreko **aukera kostua** finkatuz. Berria - Harian

12 *aukera leiho* *(corpusean ez dago; ETCn **19** agerraldi)*

Hernanek uste du "**aukera leiho**" bat zabaldu dela Madrilen . ETC-prentsa

Askotan esaten da gerraostea **aukera leiho** bat izan daitekeela emakumeentzat, euren aldarrikapenen alde indartsuago borrokatzeko aukera zabaltzen delako.kera-leiho berria . ETC-prentsa

Mundu ikuskera horren bitartez, saiatu ziren jendea mobilizatzen, gauzak antolatzen eta zeuzkaten **aukera leihoak** aprobetxatzen. ETC-prentsa

Eta, bestetik, balitekeelako laster ixtea Mercosurreko herrialde nagusietan? Mauricio Macrirekin Argentinan eta Jair Bolsonarorekin Brasilen? zabaldutako **aukera leihoa**. ETC-prentsa

Ia bost urte igaro dira: Espainian, oraingoz, ez da **aukera leihorik** zabaldu, eta gauza asko gertatu dira: autodeterminazio erreferendum bat Katalunian, Espainian alderdi biko sistemaren desegitea eta eskuin muturrak 52 diputatu lortzea. ETC-prentsa

Produktu edo ideia bat merkaturatu edo garatzeko, **aukera leiho** zehatz bat irekitzen da, epe jakin bat, non zirt edo zart egin behar den, egin behar dena egin, edo aukera pasatzen utzi. ETC-prentsa

Blairrek uste du "Europako azken gatazka armatuari amaiera emateko **aukera-leiho** bat" dagoela eta «aukera hori baliatzeko» deia egin die lider politiko guztiei. ETC-prentsa

13 *aukera-maukera* gehiegizko aukera edo gehiegizko aukeratu beharra adierazteko erabiltzen den esapidea.

Aukera maukera, azkenean okerra. Iñaki Arranz

Aukeraren maukera, atzenean okerra, horra! Patziku Perurena

14 *aukerako* *(orobat **aukerazko**)* **1** *izond* aukeran dagoena.

Are gehiago, arlo zibilean, otomandar gobernuak, Indiako britainiar gobernuak bezala, mendekoei beren **aukerako** hizkuntzak erabiltzen uzteko politikari jarraitu zion gizabanakoen arazo pribatuekin zerikusi handia zuten herri-arazoetan. Iñaki Mendiguren

Bitartean, kaxak egongelan pilatzen ari da, **aukerako** tresnak eta neguko arropak paketatu ahala. Javi Cillero

Abiasek eta beronen gudarosteak izugarrizko sarraskia egin zuten israeldarren artean: bostehun mila gudari **aukerako** erori ziren hilik. Elizen arteko biblia

Atzera ere **aukerako** organismoa bilakatu zen biologiaren auzirik gaitzenetariko bat aztertzeko: enbrioiaren garapena. Juan Garzia

Aise irudika zitekeen, bada, aukera-**aukerako** haur bat hautatzen, gainerako beste ondasun guztiak hautatu ohi zituen moduan: ona eta aparta, luzaroan iraungo zuena. Mirentxu Larrañaga

Bi gizon adineko jarri zizkien, zer gerta ere, zerbitzari, bi gizon **aukerako**, bi gizon leial eta zintzo, lehenago beren biziak emango luketenak, huts egin baino. Felipe Juaristi

15 *aukeran* **1** *adlag* une edo era egokian; gogara, ezin hobeto.

Apoplegia bat **aukeran** etorriko lukek. Antton Olano

Aukera-**aukeran** dituzu. Patxi Zubizarreta

Baina lema zeramalarik hasi zen pentsatzen ihes egiteko **aukeran**; guzti hartatik urruntzeko **aukeran**. Anton Garikano

Duda barik, **aukeran** hoteletan gizonezkoentzako pornografia izaten zen. Edorta Jimenez

Euskaltzaindiak h-a zela-eta ez zuen erabaki garbirik hartu; **aukeran** utzi zuen. Koldo Zuazo

Zure adinean haragi emearen zerua ez da egunero **aukeran** egoten. Hasier Etxeberria

Ez zen eredu--gutun bat, paradigmakoa: puntu honetan, historia hau asmatua balitz, bi gutun mota bakarrik nituzke **aukeran**; gutun umil, bero, kristau bat, aleman berrerosi batena; gutun doilor, harro, hormatu bat, nazi amorratu batena. Juan Garzia

Kotxean eraman nahi ninduten hotelera, edo ospitalera **aukeran**; baina nik ezetz, jadanik ez neukala hainbesteko minik. Joxe Austin Arrieta

Pentsatzekoa denez, korapiloaren askabide bat baino gehiago bada **aukeran**. Juan Garzia

Bestela nahi zituen kontuak: Istil ugari hobe, han dioten bezala: ur-putzu eta lokatza, **aukeran**. Pello Zabala

Eta, ispilua aipatu dudanez, nik neuk, **aukeran**, nahiago nuke Ispiluz Bestaldeko harako Humptey Dumptey hark bezala egingo bagenu euskararekikoan ere. Joxerra Garzia

Baina, **aukeran**, gehiegizkoa dateke "poeta" hitza; behinik behin, gazte-gazte sentitu zen une batez, husarra ia. Jose Morales

Aukeran, nahiago dut hemendik alde egin eta ondo pasatzen baduzu. Mirentxu Larrañaga

Ez zion, ba, Bartlebyk erantzun, boz gozoz, baina firmeki: **"Aukeran** nahiago ez". Pablo Sastre

16 *aukeraren maukera*

Ekitaldi berezirik ere izango da; esaterako, Maria Doloresek idatzitako **Aukeraren maukera** eta azkenean okerra antzerki laburra irakurriko dute. Berria - Kultura

Aukeraren maukera, atzenean okerra, horra! Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 16 aldiz agertzen direnak)

adierazteko aukera (22); **agertzeko aukera** (23); **ahal izateko aukera** (19); **aldatzeko aukera** (57); **aldeko aukera** (25); **amaitzeko aukera** (19); **aritzeko aukera** (86); **artean aukera** (21); **arteko aukera** (17); **ateratzeko aukera** (68)

aukera aipatu zuen (16); **aukera alferrik** (34); **aukera aparta** (51); **aukera aproposa** (16); **aukera asko izan** (18); **aukera asko izango** (19); **aukera askorik** (28); **aukera aztertu** (33); **aukera aztertzen ari** (48); **aukera badago** (18); **aukera badagoela** (25); **aukera baino** (22); **aukera bakarra** (189); **aukera baliatu** (71); **aukera bat baino** (18); **aukera bat da** (35); **aukera bat eman** (32); **aukera bat izan** (23); **aukera bat izango** (28); **aukera baten** (25); **aukera baztertu** (42); **aukera berdinak** (19); **aukera berdintasuna** (41); **aukera berdintasunerako** (31); **aukera berri** (34); **aukera berria** (24); **aukera berriak** (58); **aukera bikaina** (54); **aukera da** (47); **aukera dago** (77); **aukera dagoela** (51); **aukera dagoenean** (17); **aukera dauka** (17); **aukera dela** (30); **aukera dezente** (20); **aukera du** (139); **aukera duela** (23); **aukera duen** (24); **aukera dugu** (48); **aukera dute** (100); **aukera duten** (22); **aukera ederra** (48); **aukera eduki** (46); **aukera egin** (59); **aukera egiteko** (22); **aukera egiten** (17); **aukera egokia** (21); **aukera egon** (48); **aukera egongo** (34); **aukera eman behar** (25); **aukera eman dio** (25); **aukera eman nahi** (34); **aukera eman zidan** (17); **aukera eman zion** (71); **aukera emanez** (32); **aukera emango die** (25); **aukera emango dio** (22); **aukera emango du** (25); **aukera ematea** (55); **aukera emateko** (45); **aukera ematen die** (28); **aukera ematen digu** (34); **aukera ematen dio** (29); **aukera ematen du** (102); **aukera ematen duen** (28); **aukera ematen dute** (39); **aukera ematen duten** (16); **aukera ematen zuen** (17); **aukera ere izan** (27); **aukera ere izango** (21); **aukera eskaini** (73); **aukera eskainiko du** (18); **aukera eskaintzen du** (44); **aukera ez da** (17); **aukera ezin hobea** (80); **aukera garbi** (24); **aukera garbiak** (28); **aukera gehiago izan** (19); **aukera gehiago izango** (39); **aukera gehienak** (16); **aukera gisa** (16); **aukera gutxiago** (43); **aukera guztiak** (202); **aukera guztien** (16); **aukera handia** (56); **aukera handiagoa** (51); **aukera handiagoak** (19); **aukera handiak** (60); **aukera handirik izan** (18); **aukera hau** (89); **aukera historikoa** (59); **aukera hori ez** (23); **aukera horiek** (43); **aukera horrek** (21); **aukera horren alde** (16); **aukera horri** (33); **aukera hura** (28); **aukera ikusi** (23); **aukera ikusten** (35); **aukera izan behar** (29); **aukera izan daiteke** (16); **aukera izan dezake** (18); **aukera izan dezan** (27); **aukera izan dezaten** (46); **aukera izan du** (34); **aukera izan dugu** (21); **aukera izan dut** (28); **aukera izan dute** (24); **aukera izan genuen** (27); **aukera izan nuen** (45); **aukera izan zuen** (114); **aukera izan zuten** (83); **aukera izanen** (67); **aukera izanez gero** (32); **aukera izango da** (115); **aukera izango dela** (20); **aukera izango du** (162); **aukera izango duela** (18); **aukera izango dugu** (45); **aukera izango dute** (241); **aukera izango dutela** (24); **aukera izango luke** (25); **aukera izatea** (130); **aukera izateko** (23); **aukera izaten** (34); **aukera jasotzen** (25); **aukera on bat** (17); **aukera ona da** (19); **aukera ona izan** (20); **aukera onak** (17); **aukera onena** (32); **aukera oro** (16); **aukera oso** (23); **aukera paregabea** (117); **aukera polita** (45); **aukera politiko guztiak** (17); **aukera sortu** (24); **aukera ugari** (21); **aukera ukan** (29); **aukera ukanen** (41); **aukera ukatu** (21); **aukera zabala** (23); **aukera zabaltzen** (17); **aukera zen** (16); **aukera zuen** (44); **aukera zuten** (30)

aurkitzeko aukera (22); **aurrera egiteko aukera** (46); **azaltzeko aukera** (23); **azken aukera** (183); **aztertzeko aukera** (31); **baina aukera** (81); **baino aukera gehiago** (17); **bakerako aukera** (20); **baliatzeko aukera** (21); **baten aukera** (23); **benetako aukera** (22); **bere aukera** (40); **berreskuratzeko aukera** (26); **beste aukera bat** (147); **beste aukera batzuk** (22); **betetzeko aukera** (19); **bi aukera daude** (17); **bidaltzeko aukera** (17); **bigarren aukera** (87); **bihurtzeko aukera** (23); **bisitatzeko aukera** (17); **bizitzeko aukera** (56); **botatzeko aukera** (20); **botoa emateko aukera** (20); **bozkatzeko aukera** (50); **dago aukera** (20); **den aukera** (33); **dira aukera** (17); **dituen aukera** (22); **duen aukera** (56); **dugu aukera** (41); **dut aukera** (19); **dute aukera** (76); **duten aukera** (24); **edozein aukera** (16); **egiteko aukera eman** (43); **egiteko aukera emango** (25); **egiteko aukera ematen** (53); **egiteko aukera ere** (20); **egiteko aukera izan** (79); **egiteko aukera izango** (54); **egoteko aukera** (72); **emateko aukera izan** (18); **emateko aukera izango** (21); **entzuteko aukera izan** (19); **entzuteko aukera izango** (17); **erabakitzeko aukera** (37); **erabiltzeko aukera** (71); **eraikitzeko aukera** (23); **erakusteko aukera** (70); **eramateko aukera** (28); **ere aukera** (87); **erosteko aukera** (58); **esateko aukera** (24); **eskaintzeko aukera** (18); **eskatzeko aukera** (19); **eskuratzeko aukera** (48); **ez da aukera** (17); **ez du aukera** (30); **ez zuen aukera** (45); **ezagutzeko aukera izan** (23); **ezagutzeko aukera izango** (20); **ezartzeko aukera** (30)

fitxatzeko aukera (17); **gainditzeko aukera** (29); **garaipena lortzeko aukera** (20); **garatzeko aukera** (27); **gauzatzeko aukera** (19); **gelditzeko aukera** (16); **geratzeko aukera**

(18); **gol aukera** (117); **gozatzeko aukera izango** (19); **gure aukera** (19); **guztiek aukera** (18); **hainbat aukera** (40); **hartzeko aukera izan** (32); **hartzeko aukera izango** (35); **hasieratik jokatzeko aukera** (24); **hasteko aukera** (57); **hautatzeko aukera** (28); **helegitea aurkezteko aukera** (17); **hiru aukera** (30); **hirugarren aukera** (20); **hitz egiteko aukera** (73); **hobetzeko aukera** (28); **horrek aukera** (44); **horrelako aukera** (18); **horretarako aukera** (75); **ibiltzeko aukera** (18); **igotzeko aukera** (19); **ihes egiteko aukera** (19); **ikasteko aukera** (76); **ikusteko aukera ematen** (16); **ikusteko aukera izan** (38); **ikusteko aukera izango** (78); **irabazteko aukera gehien** (17); **irakurtzeko aukera** (26); **iristeko aukera** (25); **irteteko aukera** (20); **itzultzeko aukera** (47); **izateko aukera eman** (17); **izateko aukera izango** (16)

jakiteko aukera (33); **jarduteko aukera** (24); **jarraitzeko aukera** (80); **jartzeko aukera** (73); **jasotzeko aukera** (45); **joateko aukera** (92); **jokatzeko aukera eman** (20); **jokatzeko aukera ematen** (28); **jokatzeko aukera izan** (38); **jokatzeko aukera izango** (39); **jotzeko aukera** (42); **konponbiderako aukera** (16); **konpontzeko aukera** (25); **lan egiteko aukera** (52); **lantzeko aukera** (20); **lehen aukera** (87); **lehiatzeko aukera** (16); **luzatzeko aukera** (33); **nire aukera** (20); **nuen aukera** (21); **orain aukera** (20); **ordaintzeko aukera** (24); **osatzeko aukera** (39); **oso aukera gutxi** (19); **parte hartzeko aukera** (124); **pasatzeko aukera** (21); **sailkatzeko aukera** (44); **sartzeko aukera** (118); **sortzeko aukera** (39); **uzteko aukera** (59); **zabaltzeko aukera** (40); **zein aukera** (17); **zen aukera** (28); **zer aukera** (40); **zion aukera** (20); **zituen aukera** (21); **zuen aukera galdu** (19); **zuten aukera** (35)

aukerak daude (16); **aukerak ditu** (18); **aukerak ematen** (18); **aukerak ere** (27); **aukerak ez** (29); **aukerak izan** (47); **aukerak izango** (23); **aukerak sortu** (19); **aukerak sortzen** (17); **bere aukerak** (23); **diren aukerak** (16); **dituen aukerak** (30); **dituzten aukerak** (16); **egiteko aukerak** (49); **gol aukerak** (46); **irabazteko aukerak** (46); **izateko aukerak** (19); **lortzeko aukerak** (37); **zituen aukerak** (19)

aukeraren alde (22); **aukeraren bat** (53); **aukeraren zain** (24)

aukerari buruz (21)

aukerarik eman gabe (24); **aukerarik emango** (20); **aukerarik ematen** (46); **aukerarik ere ez** (24); **aukerarik ez du** (20); **aukerarik ez dute** (18); **aukerarik ez dutela** (18); **aukerarik ez zuen** (30); **aukerarik gabe** (111); **aukerarik ikusten** (18); **aukerarik izan ez** (33); **aukerarik izango** (103); **aukerarik onena** (21); **aukerarik txikiena** (21); **aukerarik uzten** (18); **batere aukerarik** (23); **beste aukerarik ez** (148); **beste aukerarik izan** (16); **dago beste aukerarik** (19); **egiteko aukerarik ez** (20); **egiteko aukerarik izan** (19); **egoteko aukerarik** (16); **ez du aukerarik** (28); **ez zuen aukerarik** (22); **hartzeko aukerarik** (26); **hitz egiteko aukerarik** (24); **horretarako aukerarik** (39); **ikusteko aukerarik** (25); **inolako aukerarik** (61); **irabazteko aukerarik** (25); **izateko aukerarik** (31); **jokatzeko aukerarik** (37); **lortzeko aukerarik** (27); **onartu beste aukerarik** (22); **sartzeko aukerarik** (28)

aukeraz baliatu (18)

aukeren artean (36)

aukeretako bat (23)

---

aukerabide *iz* aukera; aukera bat gauzatzeko era edo bidea.

Bestalde, kristaua bi **aukerabideren** artean hautatu beharrean aurkitzen da, biak izanik larriki txundigarriak. Iñaki Mendiguren

Hala ere, **aukerabide** bat duk, noski; eta azken beltzean, beste bat aipatzeko, jo hezake hemendik bost bat kilometrora dagoen hotelera. Migel Angel Mintegi

Horren ildotik, iritzi zion bi alderdi horien **aukerabide** bakarra dela biak batera gobernatzea eta "elkarri laguntza ematea abertzaleak erakundeetatik kanporatzeko". Berria - Euskal Herria

---

aukeraketa *iz* aukeratzea. ik **aukera**; **hautaketa**.

Ohartarazi behar da horrela deskribaturiko estrategiak ez direla sustraitzen, diskurtsoaurreko aldean, aurretiazko eta funtsezko **aukeraketa** baten sakontasun mutuan. Xabier Arregi

Egia esateko, **aukeraketa** finko bat egitera ere ez ginen iritsi, besteak beste, Sedanori idazle guztiak iruditzen zitzaizkiolako neurotikoak. Ramon Saizarbitoria

Horregatik, **aukeraketa** bat egiten dugu, eta eragin handiena izan ditzaketen mezuak jartzen ditugu euskaraz. Berria - Harian

Aukeraketa hura luzatzea ez zitzaidan gustatzen, eta iduneko bat hautatu nuen: urrezko katenbegi koxkorrez osatua. Txillardegi

Gertatu izan dira handiak pilotan, baina behin pilota **aukeraketa** eguna iritsitakoan ziurtzat ematen da finala edo partida, dena delakoa, asteburu horretan jokatuko dela. Berria - Kirola

Honek bazeukan bere baitan arrazoi gorderen bat hainbeste garrantzi emateko amaren jantzi **aukeraketari**. Anton Garikano

Uko egin diot nire **aukeraketak** justifikatzen saiatzeari. Karlos Zabala

Zer esan nahi duzu, gaien **aukeraketa** eta tratamendua aldatu egin daitezkeela? Ana Urkiza

Hitzen **aukeraketa** berak ere Erdi Arora ginderamatzan. Andoni Egaña

CCOO eta Pixkanaka Kaxkariren hautagaitzak nagusitu ziren Kutxako Administrazio Kontseiluko langileen ordezkari izateko **aukeraketan**, ELA eta LAB sindikatuen hautagaitza gainditu baitzuten. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artean aukeraketa bat (3); **aukeraketa bat egin** (4); **aukeraketa da** (5); **aukeraketa egin behar** (5); **aukeraketa egin zuten** (3); **aukeraketa egingo dute** (4); **aukeraketa egitea** (3); **aukeraketa estrategikoak** (3); **aukeraketa ez** (3); **aukeraketa genetikoa** (3); **aukeraketa hori** (5); **aukeraketa ona** (3); **aukeraketa prozesua** (3); **aukeraketa teorikoak** (5); **aukeraketa teorikoen** (5); **azken pilota aukeraketa** (3); **berriaren aukeraketa** (3); **beste aukeraketa** (4); **beste pilota aukeraketa** (11); **bi pilota aukeraketa** (4); **da aukeraketa** (4); **du aukeraketa** (4); **dugu aukeraketa** (4); **dute pilota aukeraketa** (5); **egindako aukeraketa** (3); **finalerako pilota aukeraketa** (4); **lehen aukeraketa** (4); **material aukeraketa** (6); **partidarako pilota aukeraketa** (4); **pilota aukeraketa egin** (6); **pilota aukeraketa egingo** (3); **pilota aukeraketa eguna** (3); **pilota aukeraketa egunean** (10); **pilota aukeraketa gaur** (4); **pilota aukeraketa ostegunean** (3); **zuen aukeraketa** (3); **zuten pilota aukeraketa** (3)

bi pilota aukeraketak (23); **huska pilota aukeraketak** (5); **partidetako pilota aukeraketak** (3); **pilota aukeraketak gaur** (7)

aukeraketan ez zen (3); **aukeraketan parte** (3); **egindako pilota aukeraketan** (9); **eginiko aukeraketan** (3); **eginiko pilota aukeraketan** (5); **material aukeraketan** (3); **pilota aukeraketan ez** (5)

pilota aukeraketaren ondoren (4)

burukideen aukeraketari (3)

pilota aukeraketarik (3)

pilota aukeraketetan (5)

---

aukerakizun *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* aukera.

Gure **aukerakizuna**, hortaz, ez da: euskalkiak / euskera osatua, euskera osatua / erdera baizik. ETC-literatura, saiakera

Lekuko hutsa izango da beti, 60ko hamarkadako ilusioen artean, 70eko hamarkadako dogmatismoen artean, 80etako ihesaren eta oker-zuzenketen artean, 90etako periodo espezialaren eta apagoien artean, mende honetako lehen hamarkadako Interneten eta sexuari dagozkion **aukerakizun** desberdinen artean, eta bigarren hamarkada honetako noraezean eta betikotasunean. ETC-literatura, saiakera

Beti eskertzen diet eta, zuriketan ari naizela susmatuko badute ere, ez diet guztiz zapuzten inoiz aurkeztu eta azkenik administrazioko enplegatu bilakatzeko **aukerakizuna**, jakin badakit, hura niri opatuz, kontzebi dezaketen hoberena ari zaizkidala desiratzen, kariñorik handienarekin: ziurtasun eta egonkortasuna. ETC-prentsa

---

aukerako ik **aukera 5**.

---

aukerakotasun *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* aukerako izatearen nolakotasuna.

Legeek berraztertze-errekurtsoaren ordezko prozedurak ezar ditzakete, beti ere **aukerakotasuna** bermatuz (107.2.2). ETC-zientzia, zuzenbidea

Espainola nahitaezkoa izatea Espainiako Estatuko lurralde orotan, gainerako hizkuntzen ezagutza **aukerakotasunean** utziz (Abascalen erranetan, "elebitasuna aukera soila" izatea) eta erabilera zein bere lurralde-eremura mugatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Legeak aurkezpenaren **aukerakotasuna** ezartzen du, aipatzen duenean igorpendatatik mugaegunera arte noiznahi "aurkez daitekeela" letra onarpenerako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Iritzi batzuek metodologia aktibo hauen ezarpenaren **aukerakotasuna** aldarrikatzen dute, eta beste batzuek lan-metodo indibidualagoen formulak ere nahiago izaten dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aukeramen *iz* aukeratzeko ahalmena. ik **hautamen**.

Eta horrela, **aukeramen** indartsua duten arima arrazionalak ahultzen direnean, sorkarien behe maileta kokatzen ditu, dagokien lekuan. Imanol Unzurrunzaga

Askotan egoten zen tarteko egoera batean, erdi ametsetan bezala; orduan, pentsamenduaren kontrola eta **aukeramena** galtzen bazituen, fantasiarako eta arinkeriarako erdi askatasuna erdi konpultsioa gailentzen zitzaizkion. Xabier Olarra

Gotzain batek egin zion eraso, **aukeramena** ukatzeagatik, nonbait (eta ateoa izateagatik, gauza jakina gaur egun). Esteban Antxustegi

Nola ezkondu logikoki, esate baterako, **aukeramenaren** doktrina eta patuarena, edo historiak noranzko bat duelakoa? Juan Garzia

---

aukeran ik **aukera 7**.

---

aukerarazi, aukeraraz, aukerarazten du *ad* aukeratzera behartu.

Lehena da zerbait maitatzera mugitzen nauena eta halako gauza **aukerarazten** didana goitik datorrela, Jainkoaren maitasunetik; beraz, hautatzen duenak lehenik beragan nabaritu behar du bere Egile eta Jaunagandik bakarrik dela aukeratzen duenarekiko maitasuna, handia edo txikia. Patxi Altuna

---

aukeratu, aukera(tu), aukeratzen **1** du *ad* zenbait gauzaren artean bat edo batzuk hartu edo seinalatu. ik**hautatu**.

Gaia erabat agortzerik ez zeukanez, **aukeratu** egin behar. Jon Muñoz

Ezer berezirik ez zeukan gela txiki hark: Mikelek ezkutaleku gisa **aukeratutakoa** bezalakoa zen, bere ohe, armairu, arropa-altzari eta mahaitxoarekin. Aitor Arana

Beste kontu bat da, jakina, **aukeratzen** zituzten bideak egokiak ziren ala ez esatea. Koldo Zuazo

Hau ez duk pobretasuna **aukeratu** duen gizonaren bizimodua. Askoren artean

Horretan, bi libertinoek, Valmontek eta Merteuil andreak, iristen dute goi maila, bere asmoen eta premien arabera **aukeratzen** eta baliatzen baitute unean uneko estiloa. Jon Muñoz

Ohez beteriko nabean, Beshir tunisiarrak nirearen ondoko ohaxka zeukan **aukeratuta**. Fernando Rey

Ez inork behartuta, baina nik libreki **aukeratuta**. Joan Mari Irigoien

Aukeratu beharra dago bizitza honetan. Harkaitz Cano

Hiru aste neraman negarrez, nire bizitza guztiko senargaiak, ezkontzekotan nintzen gizonak, heriotza egunerartekoa elkarrekin igarotzeko **aukeratu** nuenak, alde egin zuen. Juan Martin Elexpuru

Data hori propio **aukeratu** zuten solidarioek, besta izanda obretan langilerik ez zelako izanen. Edurne Elizondo

Neure baitan funtsezkoagoa da irakurtzeko zaletasuna edo beharra, idaztekoa baino, eta askoz ere errazago egingo nioke uko honi beste hari baino, bien artean **aukeratu** beharra suertatuko balitzait. Xabier Mendiguren Elizegi

-Toki egokia **aukeratu** duzue kanpamentua jartzeko, baina zabalegia da borroka-leku moduan. Joanes Urkixo

2 (partizipio burutua izenondo gisa) bere mota edo saileko gehienak baino hobea.

Harri handi eta **aukeratuak** ebakitzeko agindu zuen erregeak, tenpluaren oinarritarako, eta landu zitzatela. Elizen arteko biblia

Grahamstown-eko herri-liburutegian ez daukate ezer, poema **aukeratuen** bildumak izan ezik. Oskar Arana

Garaipena eskura zuela ohartu baitzen, mendiz jositako itzuli ezin gogorrago bat irabaztear den txirrindularia balitz bezala, besoak gora altxaturik, **aukeratuen** maillot horia bereganatzeko puntuan! Joan Mari Irigoien

Atzetik galera bat, dena upelez betea, eta behi tropa bat, herriko behirik ederrenak, **aukeratuak**, lepotik dunba bana, ia lurreraino iristen zitzaiela; eta azkenik, bi ehiztari, garai batean bezala jantzita, eskopetak bizkarrean eta aldean zakur bana zutela, bata zuria eta bestea beltza. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

antzeko pilotak aukeratu (6); **arabera aukeratu** (8); **artean aukeratu behar** (18); **artean aukeratu beharko** (17); **atzo aukeratu** (6)

aukeratu ahal izango (13); **aukeratu ahal izateko** (7); **aukeratu arte** (8); **aukeratu baitu** (6); **aukeratu baitzuen** (7); **aukeratu behar da** (9); **aukeratu behar dira** (7); **aukeratu behar du** (8); **aukeratu behar izan** (12); **aukeratu behar zuten** (7); **aukeratu beharko dituzte** (9); **aukeratu beharko du** (11); **aukeratu beharko dute** (17); **aukeratu beharra dago** (6); **aukeratu beharrean** (7); **aukeratu da** (7); **aukeratu den** (6); **aukeratu ditu** (49); **aukeratu dituen** (10); **aukeratu ditugu** (10); **aukeratu ditut** (11); **aukeratu dituzte** (57); **aukeratu dituzten** (6); **aukeratu du bere** (7); **aukeratu dudan** (13); **aukeratu duela** (6); **aukeratu duen** (43); **aukeratu dugu** (19); **aukeratu dut** (20); **aukeratu duten** (26); **aukeratu duzu** (16); **aukeratu duzue** (8); **aukeratu duzun** (9); **aukeratu egin behar** (10); **aukeratu egin beharko** (6); **aukeratu ere** (10); **aukeratu ez** (25); **aukeratu genituen** (9); **aukeratu genuen** (18); **aukeratu izan** (10); **aukeratu izana** (17); **aukeratu izanak** (8); **aukeratu nahi** (12); **aukeratu ninduten** (6); **aukeratu nituen** (6); **aukeratu ohi** (8); **aukeratu ondoren** (7); **aukeratu ote** (7); **aukeratu zen** (21); **aukeratu zenuen** (8); **aukeratu ziren** (13); **aukeratu zituzten atzo** (10); **aukeratu zituzten pilotak** (7); **aukeratu zuela** (8); **aukeratu zuen atzo** (9); **aukeratu zuen bere** (6); **aukeratu zutela** (9); **aukeratu zuten atzo** (10); **aukeratu zuten presidente** (9); **aukeratu zutenean** (11); **aukeratu zutenetik** (9)

bakarra aukeratu (10); **batzuk aukeratu** (19); **bera aukeratu** (14); **berak aukeratu** (25); **berria aukeratu** (13); **bi aukeratu** (6); **bi pilota aukeratu** (6); **bide bat aukeratu** (9); **bide hori aukeratu** (10); **bidea aukeratu** (19); **biziagoak aukeratu** (6); **da aukeratu** (8); **delako aukeratu** (8); **diputatu aukeratu zuten** (7); **du aukeratu** (7); **egitea aukeratu** (6); **egiteko aukeratu** (6); **egokia aukeratu** (9); **ere aukeratu** (19); **gisa aukeratu** (6); **gizon aukeratu** (6); **gramoko pilotak aukeratu** (29); **hau aukeratu** (13); **hiru pilota aukeratu** (11); **hura aukeratu** (9); **izateko aukeratu** (10); **izena aukeratu** (6); **lanak aukeratu** (6); **lehendakari aukeratu** (7); **nahita aukeratu** (6); **ni aukeratu** (6); **nik aukeratu** (7); **nola aukeratu** (11); **non aukeratu** (13); **nor aukeratu** (8); **ondo aukeratu** (10); **onena aukeratu** (11); **ongi aukeratu** (6); **pilota aukeratu zituen** (6); **pilota aukeratu zituzten** (12); **pilotak aukeratu zituen** (23); **pilotak aukeratu zituzten** (28); **presidente aukeratu zuten** (14); **zein aukeratu** (6); **zer aukeratu** (7); **zergatik aukeratu** (41)

aukeratua izan (26); **presidente aukeratua** (9)

aukeratuak izan (12)

aukeratuen artean (28)

artean aukeratuko dute (6); **aukeratuko da** (6); **aukeratuko dira** (11); **aukeratuko ditu** (17); **aukeratuko dituzte gaur** (9); **aukeratuko du** (29); **aukeratuko duen lekuan** (6); **aukeratuko dugu** (8); **aukeratuko dute gaur** (6); **aukeratuko duten** (6); **aukeratuko luke** (6); **aukeratuko lukete** (6); **aukeratuko nuen** (7); **aukeratuko nuke** (12); **aukeratuko zenuke** (14); **aukeratuko zuen** (10); **berak aukeratuko** (10); **berria aukeratuko** (7); **bidez aukeratuko** (6); **gaur aukeratuko dituzte** (7); **kultu lekutzat aukeratuko** (7); **lekutzat aukeratuko duen** (7); **pilotak aukeratuko dituzte** (8); **zein aukeratuko** (9)

aukeratutako beste (8); **berak aukeratutako** (13); **da aukeratutako** (6); **demokratikoki aukeratutako** (6)

aukeratuz gero (16)

artean aukeratzea (6); **aukeratzea da** (8)

aita santua aukeratzeko (6); **artean aukeratzeko** (13); **aukeratzeko ahalmena** (10); **aukeratzeko askatasuna** (8); **aukeratzeko bidea** (7); **aukeratzeko bozak** (11); **aukeratzeko bozketa** (6); **aukeratzeko egingo** (6); **aukeratzeko eskatu** (7); **aukeratzeko eskubidea** (24); **aukeratzeko hauteskundeak** (18); **aukeratzeko moduan** (8); **aukeratzeko orduan** (26); **aukeratzeko prozesua** (7); **errektorea aukeratzeko** (14); **hautagaia aukeratzeko** (6); **kideak aukeratzeko** (6); **legebiltzarra aukeratzeko** (8); **lehendakaria aukeratzeko** (9); **ordezkariak aukeratzeko** (11); **ordezkoa aukeratzeko** (7); **pilotak aukeratzeko** (12); **presidente berria aukeratzeko** (8); **presidentea aukeratzeko** (20)

arabera aukeratzen (7); **artean aukeratzen** (8); **aukeratzen badute** (14); **aukeratzen da** (13); **aukeratzen den** (11); **aukeratzen dira** (8); **aukeratzen ditu** (18); **aukeratzen ditut** (6); **aukeratzen dituzte** (22); **aukeratzen dituzten** (7); **aukeratzen duen** (13); **aukeratzen duena** (9); **aukeratzen dugu** (6); **aukeratzen dut** (6); **aukeratzen dute** (24); **aukeratzen duten** (11); **aukeratzen duzu** (6); **aukeratzen zituen** (8); **aukeratzen zituzten** (7); **aukeratzen zuen** (14); **aukeratzen zuten** (7); **berak aukeratzen** (7); **klaustroak aukeratzen** (6); **pilotak aukeratzen** (18)

---

aukeratzaile *izond/iz* aukeratzen duena. ik **hautatzaile**.

Gauza bera gertatzen da **aukeratzaileekin**, gene azpiratzaileekin; hots, eragileen jarduera abiarazten eta modulatzen dutenekin. Juan Garzia

Dirudienez, **aukeratzaileak** lan egun txarra izan du gaur. Berria - Kirola

Horrela jarduteko aukeratzen diren herrialdeak txiroak dira, pobrezia eta langabezia handia dutenak; **aukeratzaileak**, berriz, herrialde aberatsagoetako herritarrak dira. Berria - Gaiak

---

aukeratze *iz* zenbait gauzaren artean bat edo batzuk hartzea edo seinalatzea. ik**hautatze**.

-Artzaina izatea **aukeratzea** zeukan. Xabier Aranburu

Azkenean, kanta bat **aukeratzea** zegokion Stepheni. Xabier Olarra

-Hori ideia aleman horiena, elkarte anonimoa adierazteko horren sigla luzea **aukeratzea**! Joxan Elosegi

Tokia **aukeratzeak** ez zekarren berekin adostasuna besapean: bietako batek amore eman behar zuen gauzak ongi joan eta konponduko baziren. Pello Zabala

Hasteko, aspaldian gustuko genuen kanta triste hura **aukeratzea** bururatu zait: "Aitormena". Patxi Iturritegi

Hileroko tripako mina, bularretako bat edo edertasun-produktuak **aukeratzea**. Joseba Urteaga

---

aukerazko ik **aukera 5**.

---

aulestiar *izlag/iz* Aulestikoa, Aulestiari dagokiona; Aulestiko biztanlea.

Egun berean, berriz, ostera ere argi barik geratu ziren **aulestiarrak** larunbat arratsaldeko bostak ingurura arte. Berria - Euskal Herria

---

aulki **1** *iz* pertsona batentzako lau hankako jarlekua, bizkarduna nahiz bizkargabea, batez ere besorik gabea.

Pasatzerakoan, **aulki** baten kontra jo, paper-zorro bat aurrean eraman, eta eskuliburuz leporaino betetako apal bat urratu zuen. Jon Muñoz

Batek fraketik tira egin zion eta ilargi-aurpegiduna braust eseri zen bere **aulkian**. Lopez de Arana

Aulki tolesgarri bat eskaini zioten. Harkaitz Cano

Harik eta amak egun batean **aulkia** eta bazinak ekartzea erabaki zuen arte. Joan Mari Irigoien

Nire arrangura kirrinkariei entzungor, **aulkian** eserarazi eta etxetik atera ninduen. Alberto Ladron Arana

Zurezko mahai bat zegoen oso garbia, igurtzi asko hartutakoa, eta haren inguruan **aulkiak**; Harry bere **aulkiaren** ertzean eseri zen, ingurura begira. Iñaki Mendiguren

Aulki batean eseri da; haren ipurmasail tinkatuek bizkarra ukitzen dute eta haren soin tentea aurrerantz makurturik dago. Monika Etxebarria

Tximiniak, leihoak eta ispiluak burdinsare gotorrak zituzten, ohea eta gelako **aulki** bakarra burdinazko katez loturik zeuden zorura. Josu Zabaleta

Aulki bat alboan ipinita etzalekura igo zenean, lumatxak behera egin zuen lurra ia ukitzeraino, eta lumak, gorputzaren zamak beren gordetegitik aterarazirik, hegan barreiatu ziren gelako zoko-bazter guztietara. Jose Morales

Gorria bere **aulkian** eserita dago jadanik, leihotik goizeko argiari begira. Joseba Sarrionandia

Zumezko **aulki** bat ageri zen ohearen oinetan, diseinuzko kuxin batekin. Koro Navarro

Maistrak **aulki** bat jarri zuen eskolako mahai nagusiaren gainean. Bernardo Atxaga

Ezin dun ibili, baina **aulki** kulunkaria esku batekin altxatzen ikusi dinat. Anton Garikano

2 irud/hed

Sinagogetan lehenengo **aulkiak** eta plazetan jendearen agurrak maite dituzue. Elizen arteko biblia

Bertan, beraz, ezpatarekin erasotu baino hobe duzue gatazka hau lasai begiratu kritikaren **aulki** segurutik, alegia, borrokalarientzat leihatsua, zuentzat entretenigarria izango den gatazka, ziurki odoltsua izango ez den bukaera izanik zuen ikuskerarako probetxuzkoa izango den gatazka. Ibon Uribarri

Alain Krivine troskista **aulkia** galtzekotan dago. Berria - Euskal Herria

PP-PSE-EEk baino **aulki** bat gehiago izateko helburua ez du erdietsi, ezta EB-Berdeen laguntzarekin ere. Berria - Harian

3 ***arotz aulki*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Bi soldadu sartu ziren eskalapoigilearen dendan, aurreko gerrako elbarritu bat, une hartan bere **arotz-aulkian** lanean ari zena. ETC-literatura, saiakera

Batek dirua nahi zuen, besteak suhi bat, hirugarrenak **arotz aulki** berri bat, eta horrela erantzunez joan ziren guztiak. ETC-literatura, saiakera

4 ***aulki elektriko*** hiltzera kondenatuak exekutatzeko erabiltzen den aulki modukoa.

1888. urtean, Buffaloko gobernadoreak Westinghouse elektratresnen enpresari enkargua egin zion **aulki elektrikoa** fabrika zezan. Antzinako zurezko **aulki elektriko** bat zegoen lokalaren goiko pisuan, uhal eta guzti. orduak ematen ditu behar duen argazki horrexen bila, eta azkenean aurkitzen du: Sing Sing espetxeko **aulki elektrikoa** da. Harkaitz Cano

Hamabi urte geroago, 1960an **aulki elektrikoan** hil zuten Caryl Chessman. Pablo Sastre

Soinudun zinema indar guztiarekin ("Jazz kantaria") plazaratzen zen urte berean txirtxilatu zituzten **aulki elektrikoan**, Frantziar bat da, ausaz **aulki elektrikoan** kiskaliko dutena. Pello Salaburu

Cellier diputatuak lege bat aurrera ateratzea lortu zuen, AEBetan pertsona bera birritan **aulki elektrikora** eramatea debekatuz. Harkaitz Cano

Borreroa, erretegi baten ondotik pasatzen denean, **aulki elektrikoarekin** akordatzen da ezinbestean. Karlos Linazasoro

5 ***aulki gestatorio*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Lehen **aulki gestatorioa** eramaten zutenak izan ziren atzo Joan Paulo II.aren anderuak. ETC-prentsa

6 ***aulki goren*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Udalaren **aulki gorenean** 1999an eseri zenetik une gogorrenak dira hauek Yolanda Barcina Iruñeko alkatearentzat. ETC-prentsa

Batetik, beste inork baino anbizio handiagoa erakutsi du alderdiko **aulki gorenera** iristeko, eta badirudi ez dagoela prest hura uzteko. ETC-prentsa

Promulgatu da, halaber, Erromako Elizako **Aulki Gorenarekin** adiskidetzen edo komulgatzen, erlijio aitasantuzalea jarraitzen edo papista betekin ezkontzen den pertsona edo pertsonak kargu horietatik baztertuak direla. ETC-literatura, saiakera

7 ***aulki gurpildun***

Aulki gurpilduna kendu eta bi makulu utzi zizkidaten. Jokin Urain

Lehenik, Koronelaren emaztea bere **aulki gurpildunean** hil zen; beraz, ez genuen hura aintziraraino bultzatu beharrik izan azken batean. Mirentxu Larrañaga

Aulki gurpildunean Leireren amona zegoen, argal-argal, guztiz zurbil eta ilea zuri-zuria zuela, atzera orraztuta. Aitor Arana

Horraino, ez dago deus harrigarririk, horrelako jende asko ikusten baita beren **aulki gurpildunetan** espaloiak-eta igo ezinik. Anjel Lertxundi

Aitaren gudalagunak ditut gogoan, Divisióneko kideak, **aulki gurpildunetan** neska gazteak gozaraziz, Castellanako saloi barrokoetan. Javi Cillero

Ataria zeharkatzen ari nintzela, etxekoandrea, emakume elizkoiak lagunduta, Yonsuk andrea **aulki gurpildun** batean ipintzen ari zen; errieta eginez bezala begiratu zidan. Juan Kruz Igerabide

Zera, orain badakik zergatik nagoen **aulki gurpildun** honi lotuta. Mikel Hernandez Abaitua

Aulki gurpildun guztiak atera dira lurpetik. Josu Zabaleta

Lan egiteko bulegoko **aulki gurpildun** bat erosi dut eta arrastaka eraman dut etxeraino. Harkaitz Cano

Gose grebak asko ahuldu zuen euskal presoa, ekainaren 12an bere senideekin zuen bisitara **aulki gurpildunean** agertzeraino. Berria - Euskal Herria

Horrela baieztatu zuen Edurne Pasaban mendizaleak bere **aulki gurpildunetik**, atzo, Donostiako Kirol Etxean egindako agerraldian. Berria - Kirola

8 *Aulki Santu*

Esan liteke **Aulki Santuak** tresna gisa erabili zituela kanonistak aitasantutzak bere lehiakide sekularrarekin, Erromatar Inperio Santuarekin, izan zuen gerra berbatsuan; baina adierazpen zehatzagoa litzateke kanonistak **Aulki Santuaz** jabetu zirela esatea. Iñaki Mendiguren

Orduan, Jaunaren zerbitzariak gizatalde xalo harekin Aulki apostolikoaren aurrera aurkeztea erabaki zuen, **Aulki santu** berari apalki eta arren eskatzera, Jaunak aurrez erakutsi eta Frantziskok hitz laburrez idatzitako bizimoldea bere aginpide gorenaz onets zezan. Askoren artean

9 *aulki tolesgarri*

Baziren bertan sofa bat, egurrezko mahai bat, **aulki tolesgarriak** elkarren gainka jarrita. Koro Navarro

Bazter batean zegoen zurezko **aulki tolesgarria** hartu dut, eta eseri egin naiz. Anjel Lertxundi

Zer gogoratzen zuen? Hondartzako egonaldiak: "Etzaulki eta **aulki tolesgarrien** gainean zeuden gurasoak, lastozko burukoak zituzten eta hondarretan jolasten ari ziren umeak zaintzen. Berria - Kultura

Atzean, **aulki tolesgarri** dotorean jesarrita, fusila bustiaren bustiz distiratsu zeramala belaunetan, soldadu bat geneukan bide osoan begira. Urtzi Urrutikoetxea

Spassky Dorrea marrazteko leku bat aurkitu zuen, eta hantxe ipinarazi zion Margareti **aulki tolesgarria**. Xabier Olarra

Hainbeste pic-nic, **aulki tolesgarri**, motxila eta trepetaren artean dibaren zakurra galdu ez dugu ba... Harkaitz Cano

10 *aulki turkiar*

Pertsiako alfonbra beti bezala nabarmentzen zen bere lore gorri eta urdinekin, eta hiru **aulki turkiarrek** areagotu egiten zuten ekialdeko giroa. Fernando Rey

11 *aulkiko epaile*

Polemikarako tartea ere izan zen, hirugarren setean, **aulkiko epaileak** ona zen Williamsen pilotakada bat txartzat eman zuenean. Berria - Kirola

12 *gotzain-aulki*

Honek zaindu beharra zuen, bere **gotzain-aulkia** galdu nahi ez bazuen; beraz, katez lotu eta kartzela ilun batean sarrarazi zuen, ihes egin ez zezan; han ogia mugatua eta ura neurtua ematen zizkioten. Askoren artean

13 *gurpil aulki* *(orobat **gurpilaulki** g.er.)* aulki gurpilduna.

Gurpil-aulkian eserita geldi zegoela. Xabier Olarra

Gurpil-aulkian atera dute ospitaletik, ez baitu aski indar bildu oraindik. Imanol Zurutuza

Gurpil-aulkitik lurrera jaitsi eta xake liburua zabaldu nuen. Alberto Ladron Arana

Gurpil-aulkian zebilen haur isil begi-zabal hari. Alberto Ladron Arana

Gurpil-aulkiko bizkarraldeak. Alberto Ladron Arana

Gurpil-aulkiaren ardatzena. Alberto Ladron Arana

Gurpilaulki tolestua nasatik kubertara altxatzeko. Joseba Sarrionandia

Edwin ontzi gainetik **gurpilaulki** ergonomikoan dabilela. Joseba Sarrionandia

14 *gurpildun aulki*

Bilboko manifestazioan nabarmena izan zen ezintasun fisikoren bat duten emakumeen presentzia eta **gurpildun aulkietan** parte hartu zuten. Berria - Euskal Herria

Gurpildun aulkiari birak eta birak emanez, besoak zerurantza jasota dabil, "apusturik handiena irabazi diat, jua jua!" esanez. Pako Aristi

Eskaerak lortu ezinik, **gurpildun aulkian** zegoen bidaiari estatubatuar judu bat, Leon Klinghoffer, hil eta kareletik bota zuten. Berria - Mundua

Hemeretzi kiroletan parte hartuko dute atletek, eta hiru baino ez dira ezinduentzat bereziki prestatutako kirolak: errugbia **gurpildun aulkian**, boccia eta goalballa. Berria - Kirola

Jexux oinez makulua lagun, eta Ximon **gurpildun aulkian**. Xabier Etxabe

"Nire txakurra ere ez dut horrela tratatzen», zioen Daniel Edwardsek, **gurpildun aulki** batean hilda zegoen emakume bati begira. Berria - Harian

Antzerkia ere erruz landu zuen, bere ibilbidearen hasieran batez ere.1995eko maiatzaren 28an istripu larria izan zuen Reevek, zaldi lasterketa batean parte hartzen ari zela, eta elbarri utzi zuen istripuak, **gurpildun aulkiari** lotuta, Above Suspiction filmeko bere pertsonaia bezalaxe. Berria - Kultura

15 *haur aulki*

Une hartan Jon, bakailao saltzailea etorri zen korrika, **haur aulki** bat ekarki. Pablo Sastre

16 *ileapaindegiko aulki* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

20. mendeko **ileapaindegiko aulki** modelo bat, Eibarren egina. ETC-entziklopedia

17 *oin-aulki*

Nolatan ez nuen bada neure baitan halako errebantxa sentituko, amak eman nahi izan ez zidan **oin-aulkia** etxeratzen ari nintzen bitartean? Joxan Elosegi

Oin-aulki baten gainera igan zen eta, mintzatzen hasi aitzin, jendetzari beha egon zen, aski luzaz. Elena Touyarou

18 *prediku aulki* *(orobat **prediku alki** eta **predikalki** g.er.)* predikua egiteko mintzalekua.

Sarako elizako **prediku aulkian**. Itxaro Borda

Ihardetsi nion ene aldetik, agian aingeruen gramatika zuela erabiliko bere **prediku aulkitik** euskaldunei mintzatuko zitzaielarik. Piarres Xarriton

Behin ere ez zutela **prediku alkitik** erran bekatu mortala eginen zutela gorrien alde bozkatuz, eta ifernuaz gaztigatuak izanen zirela. Xipri Arbelbide

Ez zuten hiriaren premiarik: zergatik bada abiatuko ziren erretoreak **prediku aulkitik** salatzen zuen Baiona bezalako galtokira? Itxaro Borda

19 *tabernako aulki* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Tabernako aulkia aulki altuko mota bat da, oinentzako euskarri batekin sarritan. **Tabernako aulkien** altuerak eta estutasunak egoki egiten ditu taberna edo pubetako mahai altuetan eta barretan erabiltzeko. ETC-entziklopedia

Agurearen gorpua ageri zen **tabernako aulkien** artean, odol putzu bat buru ondoan zuela. ETC-literatura, saiakera

"8-Count" **tabernako aulki** batean eserita nengoen, zehazki deustan pentsatu gabe, hala nola zer egiten ote nuen nik han whisky urarekin edaten. ETC-literatura, saiakera

Harmailetatik begira egoteaz gain, etxeko edo **tabernako aulkian** jarri eta egunkarietara begira egotea ere ederra da, adierazpen interesgarriak egoten direlako. ETC-prentsa

Igande goizetan mendi tontorrak gainditzeko lagun egoki baten bila etxean geratzen gara, geure kabuz Aizkorriko tontorrera iristeko gai izango ez bagina gisara, edo antzerki bat ikusteko kuadrilla konbentzitu ezinda, **tabernako aulkiak** berotzen ditugu antzokietako takiletan sarrera solteak salduko ez balituzte bezala. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aulki banatan (10); **aulki bat ekarri** (7); **aulki bat eskaini** (8); **aulki bat hartu** (14); **aulki batean eseri** (35); **aulki batean eserita** (38); **aulki batean esertzen** (6); **aulki batean jarri** (7); **aulki batean jarrita** (6); **aulki baten gainean** (19); **aulki baten gainera** (6); **aulki batera** (18); **aulki batzuk** (17); **aulki elektrikoa** (7); **aulki elektrikoan** (8); **aulki elektrikoaren** (6); **aulki gainean** (26); **aulki gainera** (7); **aulki gurpildun** (7); **aulki gurpildunaren** (14); **aulki gurpildunean** (21); **aulki hartan** (11); **aulki hau** (8); **aulki hori** (8); **aulki hura** (6); **aulki huts** (6); **aulki kulunkarian** (6); **aulki luze** (7); **aulki luzean** (6); **aulki txiki** (6); **aulki txikian** (10)

bere aulki (23); **beste aulki bat** (6); **beste aulki batean** (7); **da aulki** (6); **egurrezko aulki** (6); **errege aulki** (6); **gurpil aulki** (9); **hiru aulki** (11); **jaunak aulki gurpilduna** (8); **lau aulki** (9); **ondoko aulki** (13); **ruche jaunak aulki** (8); **ruche jaunaren aulki** (7); **zegoen aulki** (14); **zen aulki** (17); **zeuden aulki** (6); **zuen aulki** (11); **zumezko aulki** (7); **zurezko aulki** (11)

aulkia ere (6); **aulkia galdu** (6); **aulkia utzi** (8); **bere aulkia** (15); **errege aulkia** (14); **gurpil aulkia** (6); **zuen aulkia** (10)

mahaiak eta aulkiak (8)

akusatuen aulkian (22); **aulkian egon** (10); **aulkian egongo** (10); **aulkian egotea** (7); **aulkian erdi** (7); **aulkian ere** (8); **aulkian eserarazi** (7); **aulkian eseri zen** (20); **aulkian eseriko da** (13); **aulkian eserirk** (8); **aulkian esertzeko** (9); **aulkian esertzen** (18); **aulkian geratu** (12); **aulkian geratuko** (8); **aulkian jarri zen** (6); **aulkian jarrita** (7); **aulkian utzi zuen** (11); **aulkian utziko** (9); **aulkian zegoen** (7); **aurreko aulkian** (11); **bere aulkian eserita** (6); **da aulkian** (13); **du aulkian** (14); **errege aulkian eseri** (7); **errege aulkian jarri** (8); **gida aulkian** (9); **gurpil aulkian** (21); **gurpildun aulkian** (11); **israelgo errege aulkian** (10); **nire aulkian** (6); **nire errege aulkian** (6); **ondoko aulkian eseri** (6); **ordezkoen aulkian** (36); **zegoen aulkian** (10); **zen aulkian** (13); **zen bere aulkian** (13); **zuen aulkian** (8)

aulkiaren atzean (6); **aulkiaren gainean** (13); **bere aulkiaren** (8)

aulkietako batean (9)

aulkietan eseri ziren (6); **aulkietan eserita** (15)

aulkira igo (7); **aulkira itzuli** (9); **aulkira joan** (6); **bere aulkira** (9)

aulkitik altxatu gabe (7); **aulkitik altxatzen** (12); **aulkitik ikusi** (8); **aulkitik jaitsi** (6); **bere aulkitik** (23); **ordezkoen aulkitik** (7); **zen aulkitik** (12)

---

aulkibero *izond* ikasle arduratsua, ikastuna.

Ez nintzen **aulkiberoa**, baina errepikatzailea ere ez.>00MeEX01¬83<-Bata, nesken gauza zela hura, hogeitik gora neska baitziren gelan eta zazpi mutil: aurreneko lerroan esertzen zirenak bi, lehenengo lerroko oilaloka **aulkiberoen** taldetxoarekin bat eginik, eta azken-azkeneko lerroan eseritakoak beste bost. Aitor Arana

---

aulkidun *izond* aulkia duena.

Horregatik ez zaizkio santa sekulan gustatu izandu jakitun ezkorrak eta zinezko eskeptikoak, ez elizari, ez politikoari, ez merkatariari, ez berbaro intelektualari, ez eskolari, ez unibertsitateari, eta ez egungo funtzionari **aulkidunari**. Patziku Perurena

Hogei arraun-**aulkidun** itsasontzi handi bateko masta iruditu zitzaigun neurriz. Juan Kruz Igerabide

Kamioietan, autoetan, orgetan, gurdi **aulkidunetan**, haur, koltxoi eta sukaldeko tresnen nahaste bat. Josu Zabaleta

---

aulkigile *iz* aulkiak egiten dituen pertsona.

Hamabi pontifize-**aulkigilek** eraman zuten Eliza katolikoko buruaren gorpua Jauregi Apostolikotik basilikaraino. Berria - Harian

---

aulkigintza *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* aulkiak egitea.

1850. urte ingurutik aitzina, Akamarre **aulkigintzan** murgilduko zen. ETC-prentsa

Biak ere maisu handi ziren hauek lehentsuago (1538-1543) Toledoko **aulkigintza** zoragarrian utzi berria zuten, beren sormen izaera desberdinaren adierazgarri. Weisek ere irudi batzuetan, lehenago Calahorrako katedralaren **aulkigintzan** lan egina zen -tradizioaren iraunkortasuna Holandako Guillenen erakoa- ikusten du. ETC-entziklopedia

---

aulkiteria *iz* aulki multzoa.

Horien arteko bat hartu eta mahai gainean utzi du, begiratu gabe; ondoren, gogotik so egin dio hurrengo argazkiari, San Jeronimoren irudia, Burgosko katedraleko **aulkiteria** batean zizelkatua. Monika Etxebarria

---

aulkito *iz* aulki txikia.

Haren inguruan, **aulkitoetan** jarriak, neska-mutil taldea, aspertu itxuran bakoitzak bere eskuan atxikitzen zuen garagardo botilari begira. Aingeru Epaltza

---

aulkitxo 1 *iz* aulki txikia.

Dendaren atzealdean, aurpegi zorrotz eta zurbileko mutiko bat **aulkitxo** baten gainean zegoen zutik, bigarren sorgin batek orratzez barrena hartzen zion bitartean soineko beltz luzeari. Iñaki Mendiguren

Eskale gizajoari denek eman zioten zerbait, baina horrek **aulkitxoaz** jo din bizkarrean. Juan Kruz Igerabide

Eta gero eskumuturrak jarri eta eskuineko eskuarekin ebakia egin nuen ezkerreko eskumuturrean... eta gero indar guztiarekin kolpea jo nuen eskuineko eskumuturrarekin **aulkitxoan** iltzatutako labanaren kontra. Fernando Rey

Mutil gazte korkox bat datorkio atzetik, **aulkitxo** bat eskuan. Koldo Izagirre

Jesarri nintzen, bada, **aulkitxoan**, eta ekin zion berak zereginari. Edorta Jimenez

2 *iz* taldeko kirol lehiaketetan, ordezko jokalariak eta teknikoak egon ohi diren tokia.

Beno, bere aurreneko denboraldian ez zuen entrenatzen, ez zen **aulkitxoan** esertzen. Berria - Kirola

Jose Mourinho Portori horrenbeste loria emandako entrenatzailea kontrarioen **aulkitxoan** ikustea zen berezia. Berria - Kirola

---

auma *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* antxumea.

Bisitarien artean, **auma** bat, txakolina eta gazta zozkatuko dituzte. ETC-prentsa

---

aumonier ik **omonier**.

---

aunatu ik **unatu**.

---

aunitz *zenbtz* anitz.

Azken batez, gure ondoan ordu gozo **aunitz** egindako laguna zen. Aingeru Epaltza

Markel artista zen, bi baino areago, esku **aunitz** behar ziren bere makilaren buruei heltzeko. Koldo Izagirre

Nolabait esan, xantrea eta eskolaua, batez ere, kantuaz arduratzen ziren hasiera batean, eta sakristaua ez preziski, baina, atzenean hiruek zizuten eginkizun berdintsua: apezak lagundu elizako zeregin **aunitzetan**. Patziku Perurena

Baina kasu honetan, bertze **aunitzetan** bezalaxe, alferrik saiatuko dira altxatua zuzentzen: ederki jakin izan baitu Filipek egoerari atxikitzen. Filipe Bidart

---

aupa *interj* norbaiti adore emateko erabiltzen den hitza.

-Aupa ! -oihukatu genuen beste hirurok, kopa jasoak ezpainetaraturik. Joan Mari Irigoien

Aupa baserritar eta ortuzaleok, akordatu Medinekin babak loretan ikusi nahi badituzue. Pello Zabala

Aupa, ezkerraldeko nire lehengusu hori! Karlos Zabala

Harryk Fredi eta Georgeri jarraitu zien aldagelatik kanpora eta, belaunek huts egingo ote zioten beldurrez, zelaira joan zen **aupa** eta goraka artean. Iñaki Mendiguren

Orduan baten batek **aupa** eta gora oihu artean, alaba ala semearen argazkia jalgitzen zuen sakelatik, treneko bagoian tinkatu lagunei errondan erakusteko. Itxaro Borda

---

aupada *iz* adore edo erronka-oihua edo keinua; adore ematea, erronka jotzea.

Gerrako tarterik luzeena fronte horrexetan eman zuen, militar graduazioan gora eginez, Alderdi Komunistaren **aupadaz** beti ere, horrela 1938a baino lehen komandante mailara iritsi arte. Edorta Jimenez

Aupada beldurgarri bat lehertu zen Héracliusen inguruan, eta hura, burua erabat galdurik, leher gaizto egin beharrean abiatu zen lasterka, bere segizio deabruzko hura atzetik kendu ezinda. Josu Zabaleta

Sariak **aupada** bat izan dira niretzat. Ana Urkiza

Ulertzen dut zergatik egin zen Erriberakoaren hautua, badakit Nafarroarena, **aupadarena**, diskriminazio positiboarena. Iñigo Aranbarri

Zin egin zuen heriotzari **aupada** joko ziola eta gizadi berri bat sortuko jainko-aginduek ezarritako suntsipenaren erdian. Juan Garzia

---

aupadaka *adlag* aupadak eginez. ik **aupaka**.

Ikasgelan sartu aurretik, elkar berotzen jardun genuen **aupadaka**. Anjel Lertxundi

---

aupaka *adlag* aupadak eginez. ik **aupadaka**.

Irakasle batzuk ere, ikasleekin batera, **aupaka** eta goraka hasi ziren albiste hori entzutean. Iñaki Mendiguren

Era hartan, gazteen etenaldi eta gehiegikerien artean, Fionnek kontaketa amaitu eta isilik geratu zen, lotsatuta, jendeak txaloka eta **aupaka** ekiten zion bitartean. Joanes Urkixo

Hau **aupaka** eta txaloka hartu zuten Falujako ehunka lagunek, meskita batera otoitz egitera joan zelarik. Berria - Mundua

Gau-pasa egiten ari duk errege, topaka, parrandan jo eta su, dantza-zalaparta bizian; eta Rin-eko ardotik tragoa jotzen duen aldiro, atabal-turutak arrantzaka hasten dituk zurrutaldiari **aupaka**. Juan Garzia

---

aupalanarru *izond* larrua jotzeko gogotsu den pertsona.

Aupalanarru horren ardura ezari egotzi zioten halako batean gertatu zen urtebeteko orein baten ihesa, bere 60 kilorekin hesia bai baina kanpoko atea inoiz pasa ezingo zukeena... prostitutentzat ireki eta zaindariei hala ahaztu ez balitzaie. Pako Aristi

Fernanek dakiela, Edurne ez zaio **aupalanarru** bota Gorkari. Aingeru Epaltza

---

aupats *iz* korrokada; urdailean eratzen diren haizeak ahotik zaratarik gabe ateratzea.

Azkenean, karkara nota luze bakar batera aldatu zen, tuba baten hotsaren antzeko **aupats** moduko batera; izan zitekeen gizaki baten korrokada ere. Oskar Arana

---

aupatu, aupa(tu), aupatzen **1** du *ad* jaso, goratu.

Beraz, denak bildu nituen eta dohakabe horien izpiritua **aupatzeari** ekin nion. Jon Alonso

Gogoan har itzan hiri bonbardatu horien argazkiak: jendea hilik eta etxeak lur arras, baina komunak, hodi zutikakoen gainetik **aupatuak**, tente oraindik ere zerurantz harro begira. Joxan Elosegi

Eta hitza betetzeko tenorea ere ailegatu zitzaion, inguru hartan gero eta etxe erraldoiagoak **aupatzen** zituela. Joan Mari Irigoien

2 du *ad* goraipatu.

Euskaraz ari den idazlea, gehienetan, herriaren alde dabilelako **aupatzen** da, eta arrazoi horregatik, goi mailan jartzen. Ana Urkiza

Barre karkailaka **aupatzen** genituen txisteok, ez onak edo gatzdunak zirelako, juduen bizkar ari ginelako baizik. Anjel Lertxundi

Horratx jendaje berbera, han **aupatuz**, hemen umilatuz, bi nazio eredu, elkarren etsai, sortzera etorria. Patziku Perurena

Beharbada hala uste duelako dio hori, edo horixe sinetsarazi nahi dizuelako, bihotz eman eta zuen **aupatzeko**. Xabier Montoia

---

aura **1** *iz* pertsona eta gauza batzuei darien argitasuna, ustez halako sentsibilitate berezi bat dutenek bakarrik ikus dezaketena.

Sua garaile izan baitaiteke, bere materiaren gorputz gehiago infinitutik sartzen den lekuan; gero indarra moteltzen zaio, beste arrazoiren batek menperaturik, edo gauzak akabatzen dira, haren **aura** kiskalgarriek irentsita. Xabier Amuriza

Sukarraldi tekniko hartan eroetxetik alde egindako txoroa ematen zuen osabak, berritasunak liluraturiko **aura**, nik inportazioen anizte lanetan jarduten nuelarik kaietan. Bego Montorio

Nik entzutez ezagutzen nituen Kurt eta Trieste, bi hitzok misteriozko **aura** bat zuten niretzat erdi lanbrotan gogoratzen nuen istorio bati esker. Anjel Lertxundi

Bere lehengo duintasun eta goitasuna ere biluzi egin zizkiotela ematen zuen, erlijio-gizonaren **aurazko** itzala galduta gizaki soil, zahar eta gupidagarri bihurturik. Xabier Mendiguren Elizegi

2 *iz* norbaiti edo zerbaiti darion zer berezia, halako zirrara eragiten duena.

Txantxetan ari ez zelako **aura** modukoa edo. Fernando Morillo

Horrek denak **aura** sakratu bat zemaien Ahmeti eta Gülbaharri. Fernando Rey

Hik pentsatzen huen kanpoan egon izanak nola-halako **aura** bat emango ziala Mariasunen begien aurrean, nola-halako karisma bat. Jokin Muñoz

Euren lanbidearen garrantzia nabarmenegia da, bereizgarri baitute estatuko erakunde bateko langile direnen **aura** zinikoa. Xabier Paya

Irakurlearen begietara, haren **aura** darama, nahitaez. Berria - Kultura

Hauskor **aura** batek inguratzen zuen beti, obsesioaren oldarrak oldar, eta agian horrexegatik ez zioten utziko inspektore izaten: errazegi kraska zitekeelakoan edo. Fernando Morillo

Baina batez ere, bere iraganeko gertakizun bat zen **aura** berezia ematen ziona. Harkaitz Cano

Hala ere, hori galdetzen genion ikasleon aurrean irabaziak zeuzkan prestijioa eta **aura** iraultzailea ez galtzearren, hitzerdiz erantzun zigun. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta ez dugu gogo izpirik **aura** horren ezabatzeko. Itxaro Borda

-Barkatu esango dizudana, maitea, baina zure inguruan oso **aura** gutxi sumatzen dut nik, oso gaitasun gutxi etorkizunaren erresonantziak hartzeko. Iñaki Mendiguren

---

aurbera *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* aldapa.

Aurberan galduak. ETC-prentsa

---

aurdiki ik **aurtiki**.

---

aureola 1 *iz* argi koroa.

Aureola santutasun goitarrago baten zeinutzat hartzen da, apezpikuen mitra edo Aita Santuaren tiararen gisara. Xabier Olarra

Bakarrik Ixabel ikusten nuen, Ama Birjina Fatiman bezalako **aureolaz**. Joxean Sagaztizabal

Gizonaren inguruan **aureola** gorria ikusirik, alarmatuta, instintoz erreakzionatu zuen. Joanes Urkixo

Zu nire bizitzan sartu baino lehenago ere, bazegoen zure inguruan **aureola** bat, koroa bat, aberastasun, bereizgarritasun eta misterioz egina. Eduardo Matauko

On Camillok, eskailera batera igota San Joseren **aureolari** distira ateratzen ari zela, bueltatu eta zer nahi zuten galdetu zien. Koldo Biguri

2 *iz* ospea, entzutea.

"Antzinako" izateak ematen duen ospearen **aureolarekin** jantzitako abanderatu bailitzan, bera izango da arkitekturaren ideia, berau arte intelektual bezala hartuz. Santiago Iruretagoiena

---

aureolatu, aureola(tu), aureolatzen du *ad* argi koroaren antzeko bihurtu.

Haren begi eder galduek suzko globoen gisa dirdiratzen dute eta haren ile bakanek lurrunez **aureolatzen** diote burezurra. Monika Etxebarria

---

auria *iz* ulua.

Gainontzeko animalia guztiek **auria** egiten ditek, ulua, marrua, baina hori gizakumearen oihuaren parekoa duk, minak edo beste sentimen bortitzen batek eraginda nahigabe botatakoa. Pako Aristi

Gero isiltasun erabatekoa egin bada ere, begiraleen oihu eta orroak entzuten jarraitu dut gau osoan, otsoen **auriak** entzuten ari banintz baino izutuago. Anjel Lertxundi

Zakurra ezin eraman, ordea, eta **auriaka** hasi zen, laguna galtzen zuelako. Gotzon Garate

---

auriaka *adlag* uluka.

Zakurra ezin eraman, ordea, eta **auriaka** hasi zen, laguna galtzen zuelako. Gotzon Garate

---

auriga *iz* Antzinako Grezian eta Erroman, zirkuko orga-lasterketetan zaldiak gidatzen zituen pertsona.

Mutikoaren gain-gainean, altzairuzko grabatu bat zegoen, eta guda-gurdien lasterketa irudikatzen zuen; hauts harrotuan, gurdiak basaki zealdoka, **aurigek** ankerki zigorkatzen zituzten zaldi eroak, bihotzak lehertzear zituzten unean harrapatu izan balitu bezala artistak, euren arrastoan lur jota erori aurretik. Mirentxu Larrañaga

---

aurikula 1 *iz* bihotzaren goialdeko bi barrunbeetako bakoitza, zainetan barrena itzultzen den odola jasotzen duena.

Bentrikulua uzkurtzen denean, odola ez da atzera **aurikulara** itzultzen, norabide bakarreko balbula gisa funtzionatzen baitu belarriak. Irene Aldasoro

Aurikuletatik jasotako odola biriketara bidaltzen du eskuineko bentrikuluak, birika-arterian zehar; ezkerreko bentrikuluak, berriz, gorputz osora bidaltzen du odola, aorta arterian zehar. Berria - Gaiak

2 *aurikulako fibrilazio* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ia 69 urte ditu, eta zenbait gaitz: ikusmen zorroztasunaren galera, ezkerreko begiko erretina askatzea, diabetesa, dislipemia, hipertentsioa eta **aurikulako fibrilazioa**. ETC-prentsa

3 *eskuin aurikula* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Benulak zainetan husten dira, eta, azkenik, odola bihotzaren **eskuin-aurikulara** itzultzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beheko kaba zainaren balbula edo Eustakioren balbula gizakiaren bihotzeko **eskuin-aurikula** eta beheko kaba zainaren inguruan dagoen balbula kardiakoa da. ETC-entziklopedia

Gizakian sinu koronarioak ezkerreko arteria koronarioaren lurraldeko odol benosoa hartzen du batik bat, eskuineko arteria koronarioak irrigatzen duen miokardio-zatiko odola zuzenean **eskuin-aurikulara** bideratzen den bitartean. ETC-entziklopedia

4 *eskuineko aurikula*

Kapilarretarik, benuletara joaten da odola, eta azkenik, zainetara; **eskuineko aurikulara** eramaten dute zainek berriro; handik, eskuineko bentrikulura igarotzen da, eta, eskuineko bentrikulutik, dagoeneko ikusi dugun bezala, berriro biriketara. Irene Aldasoro

5 *ezkerreko aurikula*

Ezkerreko aurikulara iristen da lehenik (bihotz-muskuluan dagoen pareta fineko barrunbe bat da aurikula) .Aurikula uzkurtu egiten da, eta, belarri formako balbula baten bitartez, ezkerreko bentrikulura bidaltzen du odola (bihotzeko beste barrunbe bat da ezker bentrikulua, pareta nahiko lodiak dituena (ikus 8. 1 irudia [...]. Irene Aldasoro

---

aurikular 1 *iz* entzungailua.

Atea ondo itxi eta atzean inor ez zegoela ziurtatu ondoren altxatu zuen aparailuaren **aurikularra** eta zenbakia markatu. Xabier Mendiguren Elizegi

Telefonoari eskuarekin eutsi gabe erabiltzeko saltzen diren **aurikularrek** kalte handiagoa egiten dutela jakin behar dute. Berria - Gaiak

Kabina batean bi neska gaztek barre egiten zuten **aurikularrean** belarri bana itsatsita. Joxemari Urteaga

Taldeko kirol zuzendariaren aginduak jasotzeko **aurikularrik** ez duen bakarra omen da Laiseka, eta tamainako askatasunak ekartzen ditu atzokoaren moduko hutsegiteak. Berria - Kirola

Becker andrea pixka batean pentsatzen egon eta berriro heldu zion **aurikularrari**. Anton Garikano

Ivyk **aurikularra** hartu zuenean, orduantxe bakarrik makurtu zen Dick, eta amore eman, ni Ivyrekin bakarrik ez uztearen adiskidetasunezko zerbitzua egitera. Joxe Austin Arrieta

Polimiliak -paranoide alkoholikoa, Sedanok esan zidanez- hiru egun egin zituen etxean **aurikular** handi batzuk jarrita, baina ezin izan zuen deus aurkitu, noski. Ramon

Saizarbitoria

Telefonoak jotzean, eskumuturreko erlojuari begiratu dio, besoa **aurikularra** hartzeko luzatu duenean. Lourdes Oñederra

2 *iz* hatz txikia.

Ezkerreko eskua astindu eta hatz txikia, **aurikularra** deitzen dioten hori, are txikiagoa zen orduan. Joxan Elosegi

· **3** *izond* bihotzeko aurikulari dagokiona; belarriari dagokiona. *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Batzuetan nahas daiteke entzumenaren patologia batekin, edo alderantziz; LBG giltzadura pabilioi **aurikularraren** atzealdean dago eta. ETC-entziklopedia

Odola bihotzaren ezker eta eskuin aurikuletan metatzen den heinean, nodo sinoaurikularrak (bihotzaren taupada-markagailua) seinale elektriko bat bidaltzen du, uzkurketa **aurikularra** gauzatuz. ETC-entziklopedia

4 ***fibrilazio aurikular*** maiztasun kardiakoa jaisten, igotzen edo gorabeheratsu bihurtzen denean sortzen den arritmia.

Hipertentsioa, diabetesa, bi aldaketan ebakuntza egiteko beharra, ernia diskala eta **fibrilazio** aurikularra ditu. Berria - Euskal Herria

Ondorioz, hipertentsioa, diabetesa, bi aldaketan ebakuntza egiteko beharra, ernia diskala eta **fibrilazio** aurikularra ditu. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **fibrilazio aurikularra** (3); **telefonoaren aurikularra** (3)

---

aurio *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* luma horidun txori kantaria, hegoak eta buztana beltzak dituena*(Oriolus oriolus)*.

Urretxoria edo **aurioa** ("Oriolus oriolus") oriolidae familiako hegazti paseriformea da, Eurasian eta iparraldeko Afrikan bizi dena. ETC-entziklopedia

---

aurizberritar *izlag/iz* Aurizberrikoa, Aurizberriri dagokiona; Aurizberriko biztanlea.

Gero Toñi-k aurreskua dantzatu zuen, zangoak gora, txistua jotzen zutela **aurizberritar** gazte batzuek. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

aurizki, aurizki, aurizkitzen du *ad* oinkatu, zapaldu.

Gero, sumil batzuekin harea **aurizki** , zanpatu eta zapaldu zuten, eta lurgaina berdindu. Joan Mari Irigoien

Eta gerla hartan guztia zen baliozko, baldin heresiaren uxatzeko edo haren **aurizkitzeko** bazen. Joan Mari Irigoien

---

auriztar *izlag/iz* Aurizkoa, Auritzi dagokiona; Aurizko biztanlea.

Auritzeko Udalaren eta **auriztar** guzien izenean, neure izenean ere, "ongi etorri" bero bat deneri. Herria

Auriztarrak aldiz eman zaizkigu Iruñera so eta hango idatzien bidez dute berriz euskara akulatu nahi beren herrian, sobera luzaz kasik galdurik egon baita. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

aurka **1** *postpos/adlag* kontra.

Marokora itzuli zen, gerraren batera, saharareren **aurka** seguruenik. Agurtzane Juanena

Mendebalderantz jo dut pasealeku luzetik, haizearen **aurka** , Istanbulera lehenengoz etorri nintzen egunaren kontrako bidea eginez. Jon Arretxe

Hark gorputzaren **aurka** estutu ninduen, eguzkiak erretako bere bisaia niretik gertu. Eider Rodriguez

Herritarren uztea frantsesa jakin gabe, hori da, hori, saldukeria nazionearen **aurka** . Herria

Ni, gehienetan, isilik geratzen naiz, baina noizean behin **aurka** egiten diot. Iban Zaldua

Errioxako Gobernuarenak, dena den, aurreko foru dekretuen **aurka** zabalduta dagoen eta zuhurtasun neurriak hartuta dituen auzibidean sartuko dira. Berria - Ekonomia

Hauek azkenean amore ematea hobetsi zuten, egoera beren esku zutenen **aurka** jo gabe. Elena Touyarou

Idazle handia herriaren alde edo **aurka** ari da, euskaraz idazten du eta badauka arrakasta kanpoan. Ana Urkiza

Ene buruaren **aurka** ! ez nezakeen konpreni, loak hartu ninduela! Daniel Landart

Herri gehiena **aurka** duzue, baita gazte gehienak ere, eta idazle gehienak, eta kazetari gehienak. Mikel Hernandez Abaitua

Nire ekintza haren **aurka** deus esan gabe, mutila -edo "mitila" berak zioen bezala- ohera hurbildu, inolako lotsarik gabe erabat biluztu eta izara artean sartu zen. Aitor Arana

Ezinezko amodioaren **aurka** sor litekeen gorrotoaren antzera. Iñaki Zabaleta

Amets berbera bigarren aldiz ametsarazi zion, eta halako amorru moduko bat sentitzen zuen bere ardienganako, hain leialak zituen lagunen **aurka** . Xabier Aranburu

Amerikarron **aurka** gauza asko esan ditzakezue, baina hemen gauzak logikoak dira. Harkaitz Cano

2 ***aurka bihurtu***

Zibilizazioaren zaintzaileak barbaroak eurak erabili beharrean aurkitzen dira, eta mertzenario hauek ugazaben **aurka bihurtzen** dira eta inperioaren bihotzean jotzen dute. Iñaki Mendiguren

Eta, neure maradizino haien artean, amaren eta aita Bartolomeren iduriak tartekatu eta, irrizaleak ez ziren arren, irriz eta irriz hasi zitzaizkidan biak ere, zeren eta haien aurkako mendekua ene **aurka bihurtu** baitzen. Joan Mari Irigoien

1 oharra Ohartuko da aurreko frogan idealismoaren jolasa bere **aurka bihurtzen** dela eskubide gehiagorekin. Ibon Uribarri

Antzekoak esango zizkioten ahultzeko, burkideen **aurka bihurtzeko** , bestelakotzeko. Koldo Izagirre

Higuindu egiten naute lagun guztiek, nire **aurka bihurtzen** adiskide minenak ere. Elizen arteko biblia

3 ***aurka egin*** buru egin, aurre egin.

Anglosaxoien nagusikeriaren **aurka egiten** dutela zientzialari frantsesek, italiarrek, espainiarrek, germaniarrek... Hasier Etxeberria

Coetzeek apartheid-aren eta arrazakeriaren **aurka egindako** lan literarioa omendu nahi zuten sariarekin. Berria - Kultura

Ezin espero zitekeen harengandik inolako hitz sutsurik edo arrandiatsurik, gogoko dugun gai batean **aurka egiten** digutenean ia denok esaten ditugun hitz horietakorik alegia. Jose Morales

Nabarmendu egin zen iraultzaileek juduen eta armeniarren **aurka egindako** borroka bortitzetan. Patxi Zubizarreta

Bere buruarekiko errukia sentitzen duenak mundu osoaren oihuak entzuten ditu, munduak bere duintasunaren **aurka egiten** dituen garrasiak. Lander Garro

Ez da naturari **aurka egiten** dion biolentzia bat, ez da zuen seme-alabak hiltegira bidali, zuen garunak kirtendu eta zuen arimak exorzizatzen dituen Estatuarena bezalakoa. Harkaitz Cano

Helburua preso diren irakiar batzuen **aurka eginiko** gehiegikeriak argitzea da. Berria - Mundua

Txaloka hasi nintzen, eta kolektibo osoak txaloka ekin zion, Metxari berari sekulan txalo jo nahi izan ez ziotenek zerbitzuburuaren **aurka egiten** zuten esku-zarta. Koldo Izagirre

Bestearen **aurka** eginak **egin** , atarramendu berdina izanen ditek. Xabier Olarra

4 *erlojuaren aurka*

Erlojuaren kontra bezala ibili ziren lanean. Pello Salaburu

Banaka, 45 ontzako egurra ebakiko dute, **erlojuaren** aurka (3, 2, 1, 0 puntu). Berria - Kirola

Angel Vicioso jaun eta jabe izan da **erlojuaren** aurkako proban. Berria - Kirola

Erlojuaren aurkako etaparen ostean mutilak animoz hobeto daude. Berria - Kirola

Ehun herrialde baino gehiago hartzen ari dira parte, OME Osasunerako Mundu Erakundeak gaitza gelditzeko «**erlojuaren** kontrako lasterketa» deiturikoan. Berria - Gaiak

25 kilometroko **erlojuz** kontrako batek jarriko dio amaiera itzuliari. Berria - Kirola

Gidariek 1.438,48 kilometro egingo dituzte, 377,13 kilometro **erlojuaren** aurkakoak. Berria - Kirola

Erlojuaren aurkako munduko txapelduna. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

aldaketaren aurka (20); **alemaniaren aurka** (13); **altearen aurka** (24); **amiensen aurka** (12); **anaien aurka** (14); **aren aurka jokatuko** (14); **armadaren aurka** (12); **athleticen aurka** (44); **atletico madrilen aurka** (45)

aurka abiatutako (17); **aurka agertu da** (36); **aurka agertu dira** (29); **aurka agertu zen** (54); **aurka agertu ziren** (34); **aurka altxatu** (29); **aurka altxatzen** (14); **aurka ari** (61); **aurka ariko da** (78); **aurka ariko dira** (85); **aurka aritu ziren** (25); **aurka arituko da** (18); **aurka arituko dira** (51); **aurka aritzea** (27); **aurka aritzeko** (18); **aurka atzo** (16); **aurka aurkeztutako** (22); **aurka azaldu da** (22); **aurka azaldu dira** (12); **aurka azaldu zen** (21); **aurka azaldu ziren** (19); **aurka azken** (21); **aurka baino** (18); **aurka bekatu egin** (16); **aurka berdindu** (14); **aurka bere** (15); **aurka beste** (15); **aurka bi** (13); **aurka borroka** (33); **aurka borrokan** (36); **aurka borrokatu** (60); **aurka borrokatuko** (15); **aurka borrokatzea** (13); **aurka borrokatzen** (40); **aurka borrokatzera** (12); **aurka bozkatu zuen** (24); **aurka bozkatu zuten** (49); **aurka bozkatuko** (25); **aurka dago** (52); **aurka dagoela** (33); **aurka dagoen** (18); **aurka daude** (51); **aurka daudela** (24); **aurka dauden** (53); **aurka doa** (31); **aurka doala** (16); **aurka doaz** (14); **aurka edo** (12); **aurka egin du** (16); **aurka egin dute** (11); **aurka egin zuen** (65); **aurka egin zuten** (29); **aurka egindako** (103); **aurka eginez** (14); **aurka egingo** (63); **aurka eginiko** (36); **aurka egitea** (45); **aurka egiteko** (158); **aurka egiten ari** (15); **aurka egiten du** (14); **aurka egon** (27); **aurka ekiteko** (16); **aurka emandako** (12); **aurka erabili** (14); **aurka erabilitako** (11); **aurka erabiltzen** (22); **aurka erakutsi** (17); **aurka eraso** (13); **aurka ere** (121); **aurka erredakzioa** (22); **aurka espainiako** (23); **aurka etxean** (20); **aurka europako** (13); **aurka ez** (106); **aurka ezer** (18); **aurka ezin** (12); **aurka gaizki** (11); **aurka galdu ondoren** (24); **aurka galdu ostean** (13); **aurka galdu zuen** (45); **aurka gaude** (17); **aurka gaur** (28); **aurka gogor** (27); **aurka hartu** (18); **aurka hartutako** (29); **aurka hasi** (13); **aurka hasieratik** (16); **aurka helegitea** (17); **aurka hiru** (15); **aurka hitz egin** (16); **aurka irabazi zuen** (14); **aurka irabaztea** (14); **aurka izan zen** (17); **aurka izandako** (23); **aurka jaiki** (18); **aurka jardun** (17); **aurka jarri** (40); **aurka jarriko** (12); **aurka jarritako kereila** (11); **aurka jarritako salaketa** (13); **aurka jartzen** (21); **aurka jo zuen** (21); **aurka jo zuten** (13); **aurka joan zen** (11); **aurka joatea** (17); **aurka jokatu behar** (28); **aurka jokatu beharko** (45); **aurka jokatu beharreko** (14); **aurka jokatu zuen** (57); **aurka jokatu zuten** (40); **aurka jokatuko du** (227); **aurka jokatuko duen** (39); **aurka jokatuko dute** (199); **aurka jokatuko duten** (22); **aurka jokatuko duzue** (13); **aurka jokaturiko** (19); **aurka jokatutako** (32); **aurka jokatzea** (59); **aurka jokatzeko moduan** (27); **aurka jon rejado** (17); **aurka jotzeko** (19); **aurka jotzen** (14); **aurka k** (11); **aurka koldo alduntzin** (16); **aurka lan** (17); **aurka lanean** (14); **aurka lehen** (14); **aurka lehergailuz** (12); **aurka lehiatu** (11); **aurka lehiatuko** (14); **aurka lehiatzen** (12); **aurka lortu** (15); **aurka lortutako** (18); **aurka matxinatu** (16); **aurka mintzatu zen** (15); **aurka nago** (12); **aurka neurri** (14); **aurka neurtu** (14); **aurka neurtuko dituzte** (17); **aurka oldartu zen** (11); **aurka partida** (25); **aurka protesta egiteko** (28); **aurka protestatzeko** (15); **aurka sadarren** (14); **aurka salaketa** (15); **aurka tiro egin** (14); **aurka zegoen** (13); **aurka zeuden** (20)

aurkari zuzenen aurka (12); **azken sailkatuaren aurka** (12); **azurmendiren aurka** (13); **baionaren aurka** (33); **barriolaren aurka** (13); **bartzelonaren aurka** (113); **bata bestearen aurka** (13); **batasunaren aurka** (18); **bathen aurka** (11); **batzuen aurka** (23); **belokiren aurka** (16); **beraien aurka** (11); **beraren aurka** (48); **bere aurka** (82); **bere buruaren aurka** (15); **berriaren aurka** (22); **bidasoaren aurka** (11); **borondatearen aurka** (21); **bourgoinen aurka** (23); **briveren aurka** (16); **bushen aurka** (14); **cadizen aurka** (19); **castresen aurka** (21); **celtaren aurka** (51); **ciudad realen aurka** (19); **clermonten aurka** (13); **denaren aurka** (11); **denen aurka** (13); **deportivoren aurka** (70); **dira elkarren aurka** (22); **direnen aurka** (12); **dute elkarren aurka** (21); **dutenen aurka** (23)

egitasmoaren aurka (22); **egitearen aurka** (36); **egoitzaren aurka** (18); **eizagirreren aurka** (13); **elkarren aurka ariko** (37); **elkarren aurka aritu** (17); **elkarren aurka arituko** (13); **elkarren aurka jokatu** (46); **elkarren aurka jokatuko** (58); **elkarren aurka jokatzen** (13); **elkororen aurka** (12); **en aurka** (31); **ene aurka** (11); **erabakiaren aurka** (41); **ere aurka** (11); **erlojuaren aurka** (13); **errauste plantaren aurka** (23); **errauste planten aurka** (17); **erregearen aurka** (18); **errusiaren aurka** (14); **ertzaintzaren aurka** (14); **eskubidearen aurka** (12); **espanyolen aurka** (59); **estudiantesen aurka** (16); **etaren aurka** (42); **etsaiaren aurka** (14); **etsaien aurka** (29); **etxearen aurka** (15); **etxebesteren aurka** (13); **etxeko taldearen aurka** (15); **eulateren aurka** (11); **euren aurka** (19); **europako konstituzioaren aurka** (12); **euskal herriaren aurka** (18); **euskal presoen aurka** (13); **ezker abertzalearen aurka** (20); **ezkurraren aurka** (19); **frantziaren aurka** (28)

gaitzaren aurka (13); **gazteen aurka** (11); **gazteren aurka** (12); **gerraren aurka** (25); **getaferen aurka** (38); **gobernuaren aurka** (51); **grenobleren aurka** (22); **gure aurka** (85); **guztien aurka** (70); **haien aurka** (85); **handiaren aurka** (13); **handitzearen aurka** (12); **herritarren aurka** (27); **hiriaren aurka** (18); **honen aurka** (58); **horien aurka** (53); **hormaren aurka** (17); **indarkeriaren aurka** (26); **indartsuaren aurka** (12); **ingalaterraren aurka** (28); **ingelesen aurka** (16); **inoren aurka** (13); **interesen aurka** (20); **iraken aurka** (12); **iritziaren aurka** (19); **irujoren aurka** (11); **israeldarren aurka** (16); **israelen aurka** (15); **italiaren aurka** (18); **itunaren aurka** (18); **ixtearen aurka** (13); **jainkoaren aurka** (14); **jaunaren aurka** (35); **joventuten aurka** (12); **kantabriaren aurka** (16); **kataluniaren aurka** (11); **kideen aurka** (15)

lagunen aurka (15); **lan kontratuaren aurka** (12); **langileen aurka** (16); **larretxearen aurka** (17); **lasaren aurka** (28); **legearen aurka** (73); **legeen aurka** (11); **legez kanporatzearen aurka** (12); **leinsterren aurka** (19); **leonen aurka** (11); **levanteren aurka** (25); **liderraren aurka** (37); **lizasoren aurka** (11); **lyonen aurka** (13); **maccabiren aurka** (11); **madrilen aurka jokatu** (20); **malagaren aurka** (60); **mallorcaren aurka** (31); **manifestarien aurka** (20); **miarritzeren aurka** (17); **milanen aurka** (11); **mindegiaren aurka** (23); **moisesen aurka** (14); **montpellierren aurka** (20); **mulhouseren aurka** (12); **murtziaren aurka** (31); **nagusiaren aurka** (12); **nahiaren aurka** (11); **narbonaren aurka** (17); **nazionalaren aurka** (13); **nire aurka** (105); **noren aurka** (18); **numanciaren aurka** (19); **okupazio indarren aurka** (13); **okupazioaren aurka** (25); **ororen aurka** (22); **osasunaren aurka** (53); **osoaren aurka** (11); **otegiren aurka** (15); **otxandorenaren aurka** (15)

planaren aurka (32); **pobreziaren aurka** (11); **politikaren aurka** (31); **politikoen aurka** (15); **portlanden aurka** (17); **presidentearen aurka** (14); **proiektuaren aurka** (46); **proposamenaren aurka** (52); **prozesuaren aurka** (14); **racingen aurka** (58); **real madrilen aurka** (128); **ren aurka** (37); **sakabanaketaren aurka** (21); **saleren aurka** (11); **sevillaren aurka** (40); **staderen aurka** (27); **talde baten aurka** (34); **talde handien aurka** (17); **talde horren aurka** (12); **talde ohiaren aurka** (12); **taldearen aurka jokatuko** (13); **taldeen aurka** (56); **talderen aurka** (17); **tauren aurka** (15); **terrorismoaren aurka borrokatzeko** (14); **tolosaren aurka** (40); **torturaren aurka** (33); **txapeldunaren aurka** (20); **urtegiaren aurka** (27); **valentziaren aurka** (75); **valladoliden aurka** (64); **vila realen aurka** (24); **waspsen aurka** (18); **zaragozaren aurka** (65); **zearraren aurka** (12); **zuen aurka** (36); **zure aurka** (77); **zuten elkarren aurka** (19); **zutenen aurka** (15)

---

aurkako 1 *izond* kontrakoa.

Ez onartu arduradun baten **aurkako** salaketarik, bi edo hiru lekukoren aitorpenaz ez bada. Elizen arteko biblia

Baina nigan bi kontzeptu **aurkako** horiek aspaldi aurkitu zuten neurgailua. Karlos Linazasoro

Nolatan izan izuaren garren **aurkako** babesgailu, alaba baino harresi, bilakatu ninduten gurasoen oinorde? Joxan Elosegi

Eskolako liburuetan Francoren argazkiak agertzen ziren eta gorri separatisten **aurkako** garaipenak ikasi behar zituen. Sonia Gonzalez

Erdilariaren bitartez, baloia eskuratu nuelarik, tira-ahala lasterka abiatu nintzen, **aurkako** lerroan zuloak egiten saiatuz. Daniel Landart

Atatürk jenerala izan zen arrakastaren giltza, berak gidatu baitzuen greko, kurdu eta armeniarren **aurkako** borroka, aliatuek Turkiaren gaurko mugei onespena ematea lortu zuen arte. Jon Arretxe

Berak bakarrik eman zuen zure **aurkako** testigantza. Fernando Morillo

Kotxeen **aurkako** protesta horietako bat, nik uste. Lopez de Arana

Hegazkin **aurkako** tiroa, udaberriko euria baizik ez da, gure artean. Josu Zabaleta

Ez da ohartzen iritzi desberdinak eta arrazakeria bi gauza direla eta Sophie-k ez lezakeela maita kolore desberdineko jendearen **aurkako** herrak hazten duen gizon bat. Eneko Bidegain

Gure laborategian ere agertuko zen nor edo nor nire **aurkako** pozoi gozotik arnastera. Hasier Etxeberria

Maitatzearen **aurkako** denez, gorrotoa inola inoiz onestezina da, zergatirik ez dauka. Jenaro Garate

Aldeko, **aurkako** edo erdibideko, denek onartuko dute aho batez bertsoa gauza subjetiboa dela, neurgaitza onenera; neurtezina ia beti. Andoni Egaña

Izan ere, gizakiak berekoi, diruzale, harro eta handiputz eta erlijioaren **aurkako** izango dira. Joan Mari Lekuona

2 *arrazakeriaren aurkako*

Berton jaioak izan ala ez, "euskal herritar guztien eskubide ororen alde» egin zuen atzo Batasunak, **arrazakeriaren aurkako** astearen karietara. Berria - Euskal Herria

Erakundeko zuzendari Chris Myant "izugarri kezkatuta» agertu zen asteazkenean, eta dei egin zien halako kasuak ezagutzen dituzten fakultateei edo ikasleei **arrazakeriaren aurkako** erakundearekin berehala harremanetan jartzeko. Berria - Mundua

Faltsutzaileak **arrazakeriaren aurkako** militanteak ziren eta bere helburua bete-betean erdietsi zutela esan daiteke. Txema Ramirez de la Piscina

Arrazakeriaren aurkako lege zorrotzenak ere ez ditu desagerraraziko gure baitan hain errotuak ditugun eskema xenofoboak. Anjel Lertxundi

Arkakusoa errebindikatzen zuten **arrazakeriaren aurkakoek** sinbolotzat, ez baitu odolaren kausaz inor baztertzen. Joxerra Garzia

3 *arrazismoaren aurkako*

Iaz ere polemika sortu zuen afixa batek Frantzian, **arrazismoaren aurkako** elkarte katoliko batek auzitara jo baitzuen Costa-Gravasen Amen filmeko afixaren aurka. Berria - Kultura

Arrazismoaren aurkako jardunotan aurkitzen dira Unamuno-ren testurik ederrenetakoak -geografia, arraza eta enparauak oro bazterturik- hizkuntzaren gorazarrez, herri

baten izpiritu eta arima bezala, edo pentsaera baten sustrai bezala. Joxe Azurmendi

4 *aurkako adibide* *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)*

Logikan, **aurkako adibidea** multzo bateko elementu guztietarako betetzen den proposizio orokor bat ezeztatzen duen egitate bat da. ETC-entziklopedia

Allaisen paradoxa itxarondako baliagarritasunaren teoriako independentziaren axioma kolokan jartzen duen **aurkako adibide** bat da. ETC-entziklopedia

Bereziki, matematikan erabiltzen dira, formalki frogatu ez diren baina **aurkako adibiderik** ez duten proposizioak izendatzeko. ETC-entziklopedia

Hala ere, **aurkako adibidea** ere ezagutu du SEIPekoak: "Alegia, aldarte txarrean daudela Rammstein entzun eta lasaitzen direnak. ETC-prentsa

Txina jartzen du **aurkako adibide** gisa. ETC-literatura, saiakera

Aurkako adibidea : Txina, mendeetan zehar Erdiko Erresuma, etsairik gabe bere baitan itxita, eta askatasun arrastorik gabe (Refl. ETC-literatura, saiakera

Baina **aurkako adibideak** ere ugari dira. ETC-literatura, saiakera

Hirugarrena, parte-hartzeari dagokio: prozesu honetan nolabaiteko malgutasuna ikusi dugu, **aurkako adibideak** badauden arren. ETC-literatura, saiakera

Jakina, badira **aurkako adibideak** ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

5 *aurkako gertakizun* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Batezbestekoaren inguruko tarte simetriko bati dagokion probabilitaterako, muturretako balioek (aurreko adierazpenean) gertakizun osagarri **aurkako gertakizuna** osatzen dutela kontuan hartuz. ETC-entziklopedia

6 *balen aurkako barneko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Armak har ditzaten ere, **balen-aurkako barnekoak** ahantzi gabe. ETC-literatura, saiakera

7 *balen aurkako txaleko* *(corpusean ez dago; ETCn **43** agerraldi)*

Balen aurkako txalekoa soina baletatik babesteko erabiltzen den jantzi berezia da, mahukarik gabea eta enborra gerriraino estaltzen duena. ETC-entziklopedia

Estalki beltzak buruan, **balen aurkako txalekoak** soinean eta hatz urduriak fusilen katuan, ibilgailuak banan-banan geratzen ari ziren zomorroiak. ETC-literatura, saiakera

- **Balen aurkako txalekoa** ? ETC-literatura, saiakera

Balen aurkako txalekoa jantzita ibiltzen zen Bogotako kaleetan barna. ETC-literatura, saiakera

Esan didatenez, Pakistanera joateko ordenagailu mugikorra eta sakelako telefonoa ez ezik, **balen aurkako txalekoa** ere eman zizuten. ETC-prentsa

Caixara sartu eta kristaletatik kanpora begira, Jokin Zaitegi plazan, mugimendu arraroak sumatu nituen: uniformedunak bazterretara begira, korrika, pinganilotik berbetan eta **balen aurkako txalekoak** soinean, euren onetik irtenda baleude bezala. ETC-prentsa

Guelph-eko Unibertsitateko (Kanada) ikerlari talde baten arabera, mixina izeneko arrainak jariatzen duen mukiarekin **balen aurkako txalekoak** ekoizterik izango da, besteak beste. ETC-prentsa

Balen aurkako txalekoak "bizia salbatu" die. ETC-prentsa

Espainiako Aire Armadako hegazkin batean iritsi zen Cavallo Madrilera, **balen aurkako txaleko** bat jantzita zuela. ETC-prentsa

Beroki gizena jantzita, ez dakit zergatik, ez dut inoiz probatu, **balen aurkako txalekoa** jantzita bezala sentitzen naiz. ETC-prentsa

Balen aurkako txalekoa jantzita zuen, baina, tiro bat beso azpitik sartu eta bularrean harrapatu zuen gizona, eta zauritu larriak eragin zizkion. ETC-prentsa

Balen aurkako txaleko berriak ere emango dizkiete ertzain guztiei. ETC-prentsa

8 *blokeatzearen aurkako sistema* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

ABS (**blokeatzearen aurkako sistema**) erabiltzen dituen eragingailu eta sentsore berberekin ardatz motorraren gurpil batek azelerazioan irristatzen duen kontrolatzen du. ETC-entziklopedia

9 *emakumeen aurkako indarkeria*

Haurrak **emakumeen aurkako indarkeriaren** biktimak dira, eta, biktimak diren neurrian, babeserako sistemek kontuan izan behar dituzte. Berria - Euskal Herria

Manuela Carmena abokatuak **emakumeen aurkako indarkeriari** buruzko hausnarketa egin du ondoko artikuluan. Berria - Euskal Herria

10 *erloju orratzen aurkako noranzko* *(corpusean ez dago; ETCn **33** agerraldi)*

Hitzarmenez, **erloju-orratzen aurkako noranzkoa** da noranzko positiboa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Faila transformatzailea, haatik, gandorren gailurren artean baino ez da aktiboa, eta bertan sortzen duen mugimendua ezker-alboranzkoa (**erloju-orratzen aurkako noranzkoan**) da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hitzarmenez, 0 angelua x ardatzetik hasita neurtu ohi da eta **erloju-orratzen aurkako noranzkoan** handituko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ebazpena: Korrontea irudiko noranzkoan doala onartzen dugu; gu, berriz, **erloju-orratzen aurkako noranzkoan** joango gara zirkuituan zehar, a puntutik hasita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sarrera nagusitik eta **erloju orratzen aurkako noranzkoan** , honako hauek dira eszena nagusiak: ETC-entziklopedia

Errotazio-mugimendua: bere ardatzaren inguruan biraka egiten duena; **erloju-orratzen aurkako noranzkoan** egiten du. ETC-entziklopedia

11 *erloju orratzen aurkako zentzu* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Bi koordenatuak, zeru longitudea, ekliptikaren gainean neurtua, Aries Puntutik abiatuta eta **erloju orratzen aurkako zentzuan** , eta zeru latitudea dira, azken hau, astroak, ekliptikarekin eratzen duen angelua delarik. ETC-entziklopedia

Zeru longitudea edo longitude ekliptikoa, ekliptikaren gainean neurtutako angelua da, Aries puntutik abiatuta eta zentzu zuzen edo **erloju orratzen aurkako zentzuan** . ETC-entziklopedia

12 *erlojuaren aurkako*

Hemen **erlojuaren aurkako** etapa jartzea oso erabaki txarra da. Berria - Kirola

Erlojuaren aurkako lasterketa hark oso amaiera tristea eduki zuen, larunbat arratsaldean Blanco Garrido hilda agertu baitzen Lasarte inguruan. Pedro Alberdi

" **Erlojuaren aurkako** lasterketa batean gaude eta Irakeko prozesu politikoarekin konpromisoa dugu. Berria - Mundua

Nolabaiteko garaipena zen esnatu eta **erlojuaren aurkako** lehian egon ordez egun osoa elkarrekin igarotzearen perspektiba. Eider Rodriguez

13 *gasaren aurkako maskara* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Gas-maskara edo **gasaren aurkako maskara** ahoa eta sudur-zuloak estaliz, arnasbideetan gas kaltegarririk sar ez dadin aurpegian jartzen den tresna da. ETC-entziklopedia

Herritar asko **gasaren aurkako maskarak** eskuratzeaz hitz egiten ari dira. ETC-prentsa

Yuksekoba barrutiko herritarrek Firat agentziari kontatutakoaren arabera, Turkiako soldaduek **gasaren aurkako maskarak** zeramatzaten soinean, eta oxigeno tankeak bizkarrean. ETC-prentsa

Ongi zekiten, Alhucemasen espainolek jantzitako **gasaren aurkako maskarak** , mila inguru, britainiarrek salduak ziren eta. ETC-literatura, saiakera

14 *gizadiaren aurkako krimen*

Sexu erasoak, bortxaketak, emakumeen sexu organoen erauzketak, emakumeen aurkako indarkeria eta sexu trafikoa pertsonaren eta **gizadiaren aurkako krimenak** dira. Berria - Harian

" **Gizadiaren aurkako krimenak** " direla eta hartu du barkamenaren diskurtsoak halako garrantzi internazionala. Joseba Zulaika

15 *gizateriaren aurkako*

Antisemitismoa **gizateriaren** aurkako krimena da. Berria - Mundua

Zibilen kontrako eraso masibo eta sistematikoak **gizateriaren aurkako** krimenak dira. Berria - Mundua

Genozidioagatik, gerra krimenengatik eta **gizateriaren kontrako** krimenengatik ari ziren epaitzen buruzagia izandakoa Jugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegian. Berria - Mundua

Sierra Leonarako Epaitegi Bereziak 17 gerra krimen eta **gizateriaren aurkako** krimen leporatzen dizkio Taylorri.

Hagako Auzitegiak gerra krimenez eta **gizateriaren kontrako** krimenez akusatu zuen lehenago Jugoslaviako presidente ohia. Berria - Mundua

Gizateriaren kontrako krimenak eragozteko neurriak hartzeko. Berria - Mundua

· Milosevici gerra krimenak zein **gizateriaren** aurkakoak leporatzen dizkiote. Berria - Mundua

16 ***herdoil-aurkako*** *iz* antioxidantea.

Herdoil -aurkako baten formula, kromatoetan oinarritua. Juan Garzia

Kromatozko **herdoil** -aurkakoen berniz-ore dontsuan. Juan Garzia

17 ***istiluen aurkako polizia***

"Siriako **istiluen aurkako Poliziaren** balek beste bost pertsona hil dituzte gaur atzo», gaineratu zuen politikariak. Berria - Mundua

18 ***legez aurkako*** *izlag* legez kontrakoa.

Legez aurkako ezer ez dela egon eta dirua ez dela desagertu. Berria - Ekonomia

19 ***sateliteen aurkako arma*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Sateliteen aurkako arma satelite artifizialak ezgaitzeko eta suntsitzeko diseinatutako arma berezia da. ETC-entziklopedia

20 ***suaren aurkako ate*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Beharrezko segurtasun neurriak sute edo uholde kasuetarako: drainatzeak, su-itzalgailuak, ebakuazio bideak, **suaren aurkako ateak**. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

adierazpen askatasunaren aurkako (20); **aeben aurkako** (21); **agintearen aurkako** (12); **ahtren aurkako asanbladak** (17); **albaceteren aurkako** (15); **aren aurkako** (25); **arrazakeriaren aurkako** (14); **arte ilunen aurkako** (37); **athleticen aurkako** (25)

aurkako adierazpenak (13); **aurkako akusazio** (11); **aurkako akusazioak** (17); **aurkako argudioak** (11); **aurkako atentatu** (21); **aurkako atentatua** (41); **aurkako atentatuak** (20); **aurkako atentatuan** (11); **aurkako auzia** (42); **aurkako auziak** (12); **aurkako azken** (27); **aurkako babes** (11); **aurkako batzordeak** (19); **aurkako beste** (23); **aurkako bi** (24); **aurkako borrokak** (28); **aurkako borrokarako** (11); **aurkako borrokari** (23); **aurkako botikak** (21); **aurkako botoa eman** (14); **aurkako derbia** (21); **aurkako derbian** (16); **aurkako ekintza** (30); **aurkako ekintzak** (27); **aurkako epaia** (26); **aurkako epaiketa hasi** (19); **aurkako epaiketan** (18); **aurkako erabakia** (19); **aurkako eraso** (93); **aurkako erasoa dela** (11); **aurkako erasoa izan** (17); **aurkako erasoak salatu** (13); **aurkako erasoaren** (13); **aurkako erasoen** (17); **aurkako erasoetan** (12); **aurkako erasotzat jo** (13); **aurkako erresistentzia** (19); **aurkako estatu** (12); **aurkako estradizio** (20); **aurkako euroagindua** (14); **aurkako froga** (12); **aurkako gerran** (17); **aurkako hainbat** (18); **aurkako helegitea aurkeztu** (17); **aurkako herri** (13); **aurkako hitzak** (12); **aurkako indarkeria bi** (20); **aurkako indarkeria gizon** (28); **aurkako indarkeriak** (11); **aurkako indarkeriari aurre** (11); **aurkako irainak** (11); **aurkako iritzia** (18); **aurkako jarrera** (99); **aurkako jarrerak** (12); **aurkako jazarpena** (27); **aurkako kanpaina** (55); **aurkako kanporaketa** (18); **aurkako kereila** (19); **aurkako krimen** (12); **aurkako krimena** (12); **aurkako krimenak** (17); **aurkako kritika** (11); **aurkako kritikak** (22); **aurkako lege** (18); **aurkako legea** (34); **aurkako lehen** (26); **aurkako lehia** (30); **aurkako lehian** (31); **aurkako manifestazio** (12); **aurkako manifestazioa** (11); **aurkako manifestazioak** (13); **aurkako mezua** (26); **aurkako mozioa** (13); **aurkako mugimendua** (11); **aurkako nazioarteko eguna** (15); **aurkako neurketa** (14); **aurkako neurri** (42); **aurkako neurriak** (70); **aurkako neurririk** (13); **aurkako norgehiagoka** (14); **aurkako oihuak** (34); **aurkako operazio** (16); **aurkako operazioa** (41); **aurkako operazioan** (31); **aurkako partidak** (32); **aurkako partidan** (133); **aurkako partidarako** (18); **aurkako partidaren** (43); **aurkako plataformak** (13); **aurkako politika** (17); **aurkako polizia** (17); **aurkako porrota** (12); **aurkako protesta** (26); **aurkako protestak** (24); **aurkako prozedura** (13); **aurkako salaketa jarri** (34); **aurkako salaketak** (30); **aurkako taldea** (13); **aurkako tratamendu** (11); **aurkako tratamendua** (13); **aurkako tratu** (18); **aurkako txertoa** (29); **aurkako zentsura mozioa** (12); **aurkako zigor** (20); **aurkako zigorra** (17); **aurkako zigorrak** (11)

batasunaren aurkako (19); **baten aurkako erasoan** (26); **bazterketaren aurkako** (12); **bere aurkako** (84); **betisen aurkako** (18); **birusaren aurkako** (11); **bushen aurkako** (11); **celtaren aurkako** (12); **cperen aurkako** (16); **demokraziaren aurkako** (17); **deportivoren aurkako** (16); **dopinaren aurkako munduko** (14); **drogaren aurkako** (13); **egunkaria ren aurkako** (23); **elkarren aurkako** (38); **emakumearen aurkako** (18); **emakumeen aurkako indarkeria** (184); **emakumeen aurkako indarkeriaren** (28); **emakumeen aurkako indarkeriari** (18); **enpresaren aurkako** (13); **erabakiaren aurkako** (16); **erasoen aurkako** (11); **erlojuaren aurkako** (13); **errauste plantaren aurkako** (29); **errauste planten aurkako** (43); **errepresioaren aurkako** (18); **ertzaintzaren aurkako** (13); **espanyolen aurkako** (17); **estatuaren aurkako** (11); **etaren aurkako borrokan** (19); **euren aurkako** (15); **euskal herriaren aurkako** (14); **euskal herritarren aurkako** (16); **euskal presoen aurkako** (12); **euskararen aurkako** (20); **ezker abertzalearen aurkako** (20)

gaitzaren aurkako (21); **gazteen aurkako** (22); **genero indarkeriaren aurkako** (13); **gerraren aurkako** (36); **giza eskubideen aurkako** (16); **gizateriaren aurkako** (22); **globalizazioaren aurkako** (30); **gobernuaren aurkako** (52); **gripearen aurkako** (19); **gure aurkako** (15); **guztien aurkako** (22); **haien aurkako** (45); **handiko trenaren aurkako** (18); **haren aurkako** (68); **hiesaren aurkako** (69); **honen aurkako** (18); **horien aurkako** (23); **horren aurkako** (49); **ilunen aurkako defentsa** (12); **ilunen aurkako defentsako** (18); **iraken aurkako erasoa** (20); **iraken aurkako gerra** (11); **itoizko urtegiaren aurkako** (22); **itunaren aurkako** (14); **juduen aurkako** (13); **kazetarien aurkako** (14); **kideen aurkako** (23); **konstituzioaren aurkako** (21); **lagunen aurkako** (12); **lan kontratuaren aurkako** (16); **legearen aurkako** (35); **maiestate gorenaren aurkako** (12); **malagaren aurkako** (23); **malariaren aurkako** (15); **mallorcaren aurkako** (11); **milosevicen aurkako** (16); **minbiziaren aurkako** (17); **ministroaren aurkako** (11); **musulmanen aurkako** (14)

nire aurkako (21); **ohiaren aurkako** (21); **okupazio indarren aurkako** (19); **okupazioaren aurkako** (20); **osasunaren aurkako** (23); **otegiren aurkako** (16); **palestinarren aurkako** (19); **planaren aurkako** (14); **prekarietatearen aurkako** (14); **presidentearen aurkako** (31); **proiektuaren aurkako** (15); **proposamenaren aurkako** (15); **racingen aurkako** (26); **real madrilen aurkako** (32); **realaren aurkako** (17); **realen aurkako** (12); **sakabanaketaren aurkako** (14); **sevillaren aurkako** (23); **tabakoaren aurkako espainiako** (12); **terrorismoaren aurkako borroka** (36); **terrorismoaren aurkako borrokan** (42); **terrorismoaren aurkako borrokaren** (15); **terrorismoaren aurkako gerra** (15); **terrorismoaren aurkako ituna** (27); **terrorismoaren aurkako itunaren** (12); **torturaren aurkako taldeak** (19); **torturen aurkako** (19); **tuberkulosiaren aurkako** (13); **udalbiltzaren aurkako** (28); **ustelkeriaren aurkako** (19); **valladoliden aurkako** (15); **zaragozaren aurkako** (16)

aurkakoa da (79); **aurkakoa dela esan** (11); **aurkakoa ere** (17); **aurkakoa izan zen** (11); **aurkakoa zela** (17); **aurkakoa zen** (11); **demokraziaren aurkakoa** (11); **konstituzioaren aurkakoa** (31)

aurkakoak dira (24); **aurkakoak direla** (23); **aurkakoak izan** (16)

aurkakotzat jo (14); **konstituzioaren aurkakotzat** (11)

---

aurkakotasun *iz* kontrakotasuna.

Jende gaizkilearen ezinikusi horiek, ez al daude ezin hobeto irudikatuta zorne urdinaren baziloak eta bakteridia karbunkosoak elkarrekin duten **aurkakotasun** menderaezinean. Josu Zabaleta

Izan ere, korronte kritikoak kudeaketa txostenari **aurkakotasuna** azaldu izanak erakusten du bi ildoek ez dutela adostasunik lortu. Berria - Euskal Herria

Ia hogei urte igaro dira, eta Itoizko urtegia betetzen hasi badira ere, haren aldekoen eta kontrakoen arteko **aurkakotasuna** ez da baretu. Edurne Elizondo

Bazen aspaldi **aurkakotasun** ezagun bat: goi mailako gastronomia vs. elikagai landatarrak. Edorta Agirre

Aurkakotasunak eta kontraesanak ez dute antagonismoa nahitaezko egiten. Joseba Zulaika

Nik uste dut **aurkakotasun** hori baliagarria izan dela ulertzeko zergatik dagoen konpainia hau munduko onenetarikoenen artean. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko aurkakotasun (7); **aurkakotasun bat** (3); **aurkakotasun fonemikoak** (3); **aurkakotasun hau** (4); **aurkakotasun honen** (3); **aurkakotasun hori** (6)

arteko aurkakotasuna (11)

aurkakotasunik gabe (3)

---

aurkakotu, aurkako(tu), aurkakotzen du/da *ad* kontrajarri.

Metafisikan aurrera egiteko aurreiritzia da moraltasunari **aurkakotzen** zaion sinesmen-ezaren benetako iturburua, beti ere oso dogmatikoa dena. Ibon Uribarri

---

aurkakotza *(corpusean ez dago; ETCn **261** agerraldi) iz* aurkakotasuna.

Zailtasun horiek denak bidea egin diezaiokete ordezkaritzaren eta demokraziaren **aurkakotzari**. ETC-literatura, saiakera

Litekeena hori beherakoaren eta idorreriaren arteko **aurkakotza** berbera izatea. ETC-literatura, saiakera

Kant noski lehenengoetakoa zen zerrendan, baina errege berriaren **aurkakotza** topatu zuen, arriskutsua omen zelako. ETC-literatura, saiakera

Badirudi **aurkakotza** hori dela egungo garapen zientifikoaren ahaleginaren funtsezko gakoa, oraindik egokiro ulertzen ez duena. ETC-literatura, saiakera

Kontzientziaren sakabanatzean substantzia sinpleak **aurkakotza** jasotzen du, alde batetik autokontzientziaren aurka, eta bestetik, horrela bere baitan aurkezten du era

berean kontzientziaren izaera. ETC-literatura, saiakera

Interpretazio emankorrenen arteko **aurkakotza** iraunkorrak eta testuaren taxuketa eta sorrerari buruzko gogoeta jakin batzuek gogorarazi beharko ligukete ezen agian ez dela egingarri eta, bestalde, ez dela egilearen asmoa sumatzen ditugun kontraesan guztiak gainditzea. ETC-literatura, saiakera

Garai hartan, terminoak oso esanahi zabala zuen, arau batzuen ezagutzan oinarritutako eskuzko abilezia edo trebeziari egiten baitzion erreferentzia, eta Physis (natura) hitzarekiko erabateko **aurkakotzan** ulertzen zen. ETC-prentsa

Alderdiek formulaturiko uzien eta errekurtsoa eta **aurkakotza** funtsatzen dituzten zioen mugaren barruan epaituko dute administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenako organoek. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondasun higigarriak gordailu bidez babes daitezke, betearazlea, exekutatua edo hirugarren bat gordailuzain izendatuz, alderdien adostasunarekin edo beraietako baten proposamenez, kontrako alderdiaren **aurkakotza** justifikaturik izan ezean. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aurkarapen *(corpusean ez dago; ETCn **76** agerraldi)* *iz* aurkaratzea. ik **inpugnazio**.

Ugazabak ezin dezake **aurkarapenik** egin aldi berean ez badu eskatzen jabaria inskribatzeko, legearen seigarren tituluan ezarritako bideetatik edozein erabilita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konkurtso-administrazioari dagokio hutsalketaakzioak eta gainerako **aurkarapen** -akzioak egikaritzeko legitimazio aktiboa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Errekurtso hori auto bidez ebatziko da, eta auto horri ezin jarriko zaio inolako **aurkarapenik** . ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurkarapen -idatzian eska daiteke erabakia eteteko (edo haren eragina bertan behera uzteko). ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurkarapen -arrazoia ezaba daitekeenean, epaileak zentzuzko epea emango du hori konpontzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Era berean, adieraziko da zer organo hartu behar den erantzuletzat **aurkarapenen** ondorioetarako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eskuarki, zordunak egin dituen kontratuak **aurkarapen** -objektu izango dira, betiere aipatutako baldintzak betetzen badira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren erabakiak berehala exekutatzekoak izango dira, hargatik eragotzi gabe lege organiko honetan aurreikusitako **aurkarapen** -araubidea. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aurkaratu, aurkara, aurkaratzen du *ad* ebazpen baten edo erabaki baten aurka helegitea jarri.

Nola **aurkaratu** gertaeren haria edo ohituren lerrakera oharkabea? Andres Urrutia

---

aurkaratze *(corpusean ez dago; ETCn **389** agerraldi)* *iz* ebazpen baten edo erabaki baten aurka helegitea jartzea.

Eta are tamalgarriagoa izanen omen litzateke -diosku Zakarias Bizkarra monsinoreak 1939an, prentsak kalean euskaraz egiteagatik isunduen zerrendak zekartzalarik- erratu hari beste erratu bat **aurkaratzea** , Espainiako aborigenen hizkuntzan mintzo dena ezin bailiteke izan espainiarra besterik. ETC-literatura, saiakera

Medinak behartzeko borondatearen inguruan sortutako doktrina **aurkaratzea** . ETC-literatura, saiakera

Muturreko **aurkaratzea** dago, hortaz, herri hark utzi zizkigun legeen ekitatearen eta ahalmen basati horren artean. ETC-literatura, saiakera

Inhibitoria, izatez, demandatuaren **aurkaratze** -ahalmena errazteko prozesu-erakundea da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alderdiko organoen erabakiak **aurkaratzea** , horiek legearen edo estatutuen aurkakotzat jotzeagatik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ildo beretik, kontsulten, gobernu-errekurtsoen eta epaiketa bidezko **aurkaratzeen** araubidea zehaztu da, egintza juridiko konplexu horretan bake epaileak dituen eginkizunak finkatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurkaratze horren ondorioz, errekurtsopeko xedapena edo ebazpena eten egingo da, baina auzitegiak, gehienez jota bost hilabeteko epean, etendura hori berretsi edo kenduko du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurkaratze hori hogeita lau orduko epean ebatzi beharko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Fase erkidea konkurtso-adierazpenarekin irekitzen da eta amaitzen da konkurtsoadministrazioaren txostena aurkeztu eta **aurkaratze** -epea igaro ondoren, edo inbentarioaren zein hartzekodunzerrendaren aurka aurkeztutakoak ebatzi ondoren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Era berean, **aurkaratzeetarako** , organo arduraduntzat zein hartu behar den adieraziko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hori dela eta, haien baliokidea den **aurkaratze** -araubide prozesal bat izan behar dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kasazio-interesa: Auzitegi Gorenean, Administrazioarekiko auzien arloan **aurkaratzea** jartzeko orain arte ezarritako 600.000 euroko gutxieneko bermea kendu da. ETC-entziklopedia

---

aurkari **1** *iz* zerbaiten aurkako den pertsona; norbaiten iritzi edo jokaerei buruz aurkako iritzi edo jokaerak dituen pertsona.

Ez litzateke irrigarria **aurkari** baten gutuna edo potreta ebastea, edo debot baten sakeletarik hura salatuko lukeen zerbait ateratzea? Jon Muñoz

Hots, ukan liteke historiaren filosofia bat arrazaren erabilera franko deigarriarekin, eta antirrazista izan (arrazismo nazistaren **aurkaria** kasu honetan). Joxe Azurmendi

Eta norbaitek erantzun du Donatien heriotza-zigorraren **aurkari** sutsua izan zela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Erroman, beraz, epikureismoaren bi bertsio daude, aldi berean ordezkaturik Zizeronek, etikari begiratzen dion bere **aurkariak** , eta bere aitzindari Lukreziok, bere oinarri metafisikoak eta bere ezagutzaren teoria argiro azaltzen dituenak. Xabier Amuriza

Inor tentuz eta bere indar alde ari delako beste sinale nabaria, inoren aurka ahal den gutxienetan ateratzea da, eta, nolabait esan, **aurkari** huts bihurtuz taigabe bere nortasuna eta sormena nabarmentzera kondenatua egonen litzatekeen egoerak saihestea. Patziku Perurena

Terroristak baino **aurkari** azkarragoak, alabaina. Xabier Montoia

Baina berehala goratzen zait akordura Florenen esana, bestelako moduak erabili behar zirela **aurkari** politikoak akabatzeko. Koldo Izagirre

2 *iz* norbaitentzat, berak lortu nahi duena (norgehiagoka batean, adibidez) lortu nahi duen beste edonor.

Eta jendea boxeolariei xaxaka, oihuka, txakur amorratu eta odolgosetuen arteko borroketan bezala, **aurkaria** akabatzeko eske. Paddy Rekalde

Zakurrek ere ez dute egiten horrelakorik; zakurrari borroka-grina baretzen zaionean, **aurkaria** hilik edo zauriturik, burua makurtzen du, egin duenaz lotsa balitz bezala. Juan Kruz Igerabide

Ni baino **aurkari** gaiztoagorik izan zuen, ordea, Lauaxetak Altzoko frontoian: bertako mutiko kankailu bat, ia-ia bi metro luze zena. Juan Luis Zabala

Geratzen zaizkion indar apurrekin bada ere, gogotik saiatuko da **aurkariaren** piezen erasoei buru egiten. Imanol Zurutuza

Husna joan ziren jokalariak aldageletara, eta kafetegian zaleak itxaropentsu zeuden, ikusirik Athletic taldeak eutsi egiten ziola **aurkariari** . Joxemari Iturralde

Sosik gabe zegoen alegia, eta kartekin ateratzen zuen bizimaina, batzuetan jokalari dirudun eta eskarmentudunen begirale gisa, begibakarraren abantailak baliatuz, **aurkarien** kartak ikusi eta lehendik elkarren artean onarturiko keinuak eginez lagunari haien abisua emanez. Felipe Juaristi

3 ***lokailu aurkari*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Lokailu aurkariak aurkaritza adierazten duten lokailuak dira. ETC-entziklopedia

---

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkari aproposa (4); aurkari arriskutsu bilakatzen (3); aurkari arriskutsua da (6); aurkari asko (4); aurkari bakarra (7); aurkari batek (4); aurkari baten aurka (7); aurkari baten kontra (4); aurkari bati (5); aurkari batzuk (3); aurkari bera (3); aurkari biak (3); aurkari bihar (4); aurkari denak (9); aurkari denei (5); aurkari ehf kopako (3); aurkari erraza izango (4); aurkari errazik ez (5); aurkari etzi (3); aurkari final laurdenetan (5); aurkari finaleko ateetan (3); aurkari gaizto (3); aurkari gaiztoak (3); aurkari gaiztoena (3); aurkari gehienak (3); aurkari gehienen (3); aurkari gisa (3); aurkari gogor (3); aurkari gogorra da (9); aurkari gogorra izango (9); aurkari gogorrak izan (3); aurkari gogorrak izango (12); aurkari gogorrena (6); aurkari guztiek (5); aurkari handi (3); aurkari handiegia izan (4); aurkari horiek (3); aurkari hurrengo fasean (3); aurkari hurrengo kanporaketan (6); aurkari indartsua baita (5); aurkari indartsua da (3); aurkari indartsuak (4); aurkari izan (22); aurkari izanen

(5); **aurkari izango dituen** (3); **aurkari izango ditzuten** (3); **aurkari izango duen** (4); **aurkari izango duten** (3); **aurkari izatea** (3); **aurkari koldo alduntzin** (3); **aurkari nagusi junus** (3); **aurkari nagusia da** (4); **aurkari nagusiari** (4); **aurkari oso arriskutsua** (3); **aurkari politiko** (12); **aurkari politikoak** (9); **aurkari politikoek** (7); **aurkari politikoen** (7); **aurkari portlandek txapeldunen** (3); **aurkari samurra izango** (3); **aurkari samurragoak** (4); **aurkari samurrik** (4); **aurkari sutsuak** (3); **aurkari zaila izango** (6); **aurkari zailak** (5); **aurkari zailena** (8); **aurkari zailenak** (3); **aurkari zuzen bat** (12); **aurkari zuzen baten** (8); **aurkari zuzen bati** (3); **aurkari zuzena baita** (3); **aurkari zuzena da** (26); **aurkari zuzena izan** (6); **aurkari zuzenak dira** (3); **aurkari zuzenari** (4); **aurkari zuzenei** (3); **aurkari zuzenek** (7); **aurkari zuzenen arteko** (9); **aurkari zuzenen aurka** (12); **aurkari zuzenen kontra** (4); **aurkari zuzenen kontrako** (3); **aurkari zuzenena** (4); **aurrean aurkari** (3)

baina aurkari (9); **baino aurkari gehiago** (3); **baskoniaren aurkari** (3); **batean aurkari** (4); **bere aurkari nagusia** (4); **bere aurkari nagusiak** (4); **beste aurkari bat** (3); **betis aurkari zuzena** (3); **bi aurkari zuzenen** (4); **biak aurkari** (4); **bihar aurkari** (3); **bushen aurkari izateko** (4); **da aurkari erraza** (8); **da aurkari samurra** (4); **da gure aurkari** (4); **den aurkari** (4); **dira aurkari** (5); **diren aurkari** (5); **dituzte aurkari finalean** (3); **du aurkari espainiako** (3); **du aurkari final** (3); **du aurkari finaleko** (3); **du aurkari finalerdietan** (8); **du aurkari gaur** (4); **du aurkari hurrengo** (8); **du aurkari nagusia** (3); **du aurkari portlandek** (4); **du gaur aurkari** (5); **duen aurkari** (5); **edozein aurkari** (6); **ere aurkari** (11); **ez da aurkari** (15); **ez zen aurkari** (3); **gisako aurkari baten** (4); **haien aurkari** (3); **handiko aurkari** (3); **haren aurkari nagusiak** (3); **hiru aurkari** (3); **horrek aurkari** (3)

izan zituzten aurkari (3); **izan zuen aurkari** (5); **izanen du aurkari** (9); **izango ditu aurkari** (17); **izango dituzte aurkari** (15); **izango du aurkari** (107); **izango dute aurkari** (8); **izango duzue aurkari** (4); **laguna aurkari** (3); **lehen aurkari** (3); **lehian aurkari** (5); **lukashenkoren aurkari** (3); **madril aurkari** (3); **mailako aurkari** (3); **malaga aurkari zuzena** (3); **nafarren aurkari** (5); **nire aurkari** (4); **oso aurkari gogorra** (5); **oso aurkari indartsua** (4); **presidentearen aurkari nagusi** (4); **rossiren aurkari** (3); **taldea aurkari zuzena** (3); **tauren aurkari** (3); **ukanen ditu aurkari** (5); **ukanen du aurkari** (8); **ukanen duzue aurkari** (3); **une honetan aurkari** (3); **utzi zituen aurkari** (4); **valladolid aurkari** (3); **zituen aurkari guztiak** (4); **zure aurkari** (3); **zuten aurkari** (6)

aurkaria baino askoz (4); **aurkaria baino gehiago** (6); **aurkaria bere zelaian** (3); **aurkaria da** (7); **aurkaria dela** (3); **aurkaria edozein dela** (3); **aurkaria ere** (3); **aurkaria errespetatu** (4); **aurkaria errespetatzen** (3); **aurkaria ez** (10); **aurkaria ezustean harrapatzeko** (5); **aurkaria gainditzeko** (3); **aurkaria izan zen** (4); **aurkaria izango du** (11); **aurkaria kantuan ari** (12); **aurkaria mendean** (4); **aurkaria nor den** (3); **aurkaria ondo** (3); **aurkaria sailkapenaren** (3); **aurkaria talde** (3); **aurkaria txikitzeko** (3); **aurkaria zein den** (3); **aurkaria zen** (3); **baina aurkaria** (4); **beharreko aurkaria** (4); **bere aurkaria baino** (7); **biharko aurkaria** (3); **da aurkaria** (8); **da lehen aurkaria** (3); **den aurkaria** (3); **du bere aurkaria** (4); **du hurrengo aurkaria** (3); **duen aurkaria** (6); **dute aurkaria** (3); **duten aurkaria** (5); **finaleko aurkaria** (3); **gaurko aurkaria** (8); **gure aurkaria** (4); **handiko aurkaria** (3); **haren aurkaria** (3); **hartzeko aurkaria** (4); **izango du aurkaria** (3); **lehen mailako aurkaria** (4); **mailako aurkaria izango** (4); **portlanden aurkaria** (5); **realaren aurkaria** (5); **zen aurkaria** (3); **zen bere aurkaria** (3); **zuen aurkaria** (8); **zuten aurkaria** (3)

aurkariak atzean (3); **aurkariak aukera** (3); **aurkariak baino gehiago** (9); **aurkariak baino hobeto** (3); **aurkariak bere** (3); **aurkariak ditu** (3); **aurkariak egiten** (5); **aurkariak ere** (8); **aurkariak erraz** (3); **aurkariak etxean** (3); **aurkariak ez** (11); **aurkariak izango** (4); **aurkariak jakin** (3); **aurkariak nola** (6); **aurkariak ondo** (3); **aurkariak oso** (3); **aurkariak zer** (5); **baina aurkariak** (6); **bere aurkariak baino** (6); **beste aurkariak** (3); **bi aurkariak** (6); **da aurkariak** (6); **dira aurkariak** (5); **dira zuen aurkariak** (3); **ditu aurkariak** (8); **dituelako aurkariak** (3); **duen aurkariak** (3); **duten aurkariak** (3); **gaurko aurkariak** (12); **gure aurkariak** (12); **hiru aurkariak** (4); **hurrengo aurkariak** (7); **izango dituen aurkariak** (3); **menderatu zituen aurkariak** (3); **nire aurkariak** (4); **zituzten aurkariak** (3)

aurkariaren arabera jokatzen (4); **aurkariaren area** (3); **aurkariaren arrazoia** (3); **aurkariaren arrazoiari** (3); **aurkariaren ate ingurura** (3); **aurkariaren atea** (6); **aurkariaren atera** (7); **aurkariaren aulkian** (3); **aurkariaren aurka** (7); **aurkariaren bertsoari** (3); **aurkariaren defentsa** (7); **aurkariaren erritmoa** (3); **aurkariaren etxean** (4); **aurkariaren gainean** (5); **aurkariaren huts** (4); **aurkariaren hutsak** (5); **aurkariaren joko** (3); **aurkariaren jokoa** (8); **aurkariaren kontrako** (3); **aurkariaren lana zailtzeko** (3); **aurkariaren maila** (7); **aurkariaren menpe** (3); **aurkariaren pistan** (7); **aurkariaren zelaian** (3); **baina aurkariaren** (8); **bere aurkariaren kontra** (3); **da aurkariaren** (3); **du aurkariaren** (9); **duen aurkariaren** (3); **dute aurkariaren** (8); **ere aurkariaren** (3); **nire aurkariaren** (4); **zuen aurkariaren** (7)

aurkariari aurre egiteko (4); **aurkariari buruz** (10); **aurkariari errespetua** (3); **bere aurkariari** (7); **ekimena aurkariari utzi** (4); **zion aurkariari** (4)

aurkariaz ere mintzo (3)

bere aurkariei (4); **zien aurkariei** (5)

aurkariek baino (8); **aurkariek beren** (3); **aurkariek ere** (6); **aurkariek ez dute** (5); **aurkariek huts egitea** (3); **aurkariek partida** (3); **baina aurkariek** (3); **beraien aurkariek** (3); **bere aurkariek** (6); **bi aurkariek** (6); **dute aurkariek** (7); **gure aurkariek** (6); **haren aurkariek** (5)

aurkarien artean (9); **aurkarien arteko** (3); **aurkarien aurka** (6); **aurkarien defentsaren** (3); **aurkarien kontra** (5); **aurkarien kontrako** (3); **bere aurkarien** (5); **bi aurkarien** (3); **da aurkarien** (4); **du aurkarien** (3); **duten aurkarien** (3); **zen aurkarien** (3); **zion aurkarien** (3)

aurkarienak ere (3)

edozein aurkarik (3)

aurkaririk ez (9); **aurkaririk gabe** (9); **aurkaririk gaiztoena** (3); **aurkaririk gogorrena** (10); **du aurkaririk izan** (3); **ez du aurkaririk** (10); **ez dute aurkaririk** (3); **ustez aurkaririk errazena** (3); **zuen aurkaririk** (3)

---

aurkaritza 1 *iz* aurkakotasuna. ik **kontrakotasun**.

Liburu edo izkribu batean aurki daitezkeen kontraesaneko edo **aurkaritzako** kausak zazpi dira. Xabier Kintana

Aita eta semea mutur banatan ageri zaizkigu, eta **aurkaritza** joko ederra marrazten digu egileak. Berria - Kultura

Berriro ere idazleei emango diegu hitza, horrelako **aurkaritza** fonetikoak haiek ere lantzen dituztelako. Iñaki Arranz

Bi mutur horien arteko **aurkaritza** dialektikoaren emaitza da gaurko errealitatea, nahiz eta teknokratek menperatzen duten egoera. Iñaki Heras

Alderdi politikoen artean **aurkaritza** eta liskarra dira nagusi. Berria - Euskal Herria

2 *iz* hizkuntzalaritzan, juntagailu aurkarien bidezko elkartzea.

Edorta Jimenezen "Azken fusila"n ere ez da ia **aurkaritzako** juntagailurik ageri, dagoenak ez baitu bainarik. Markos Zapiain

---

aurkaritzako *izlag* aurkakotasunekoa.

Liburu edo izkribu batean aurki daitezkeen kontraesaneko edo **aurkaritzako** kausak zazpi dira. Xabier Kintana

Edorta Jimenezen Azken fusila-n ere ez da ia **aurkaritzako** juntagailurik ageri, dagoenak ez baitu bainarik. Markos Zapiain

---

aurkatasun ik **aurkakotasun**.

---

aurkez 1 *adlag* aurrean, aurrez aurre.

Nagusiak, kontatzailearen **aurkez** eserita baitzen, altxatu, mahaia inguratu, besoak zabaldu eta besarkatu zuen Golubtxik. Matías Múgica

Sartreren beraren berbak erabilita, gosekilik eta hilzorian dagoen umearen **aurkez** aurka, Goragalea eleberria ez da hil edo biziko gertatzen. Berria - Kultura

2 ***aurkez aurke*** *adlag* aurrez aurre.

Eta horretarako jartzen ditut hemen arazo hauek ikusten ditudan gisa, jakinik musika txarra aitzinetik dela ordaindua, **aurkez aurke**, gai hauetan zintzoki kezkaturik dena interesdun bezain eroapen handikoa izango delakoan. Pello Salaburu

Parte-hartzaileek gipuzkoar erako aurreskua osatzen duten lau dantzak egin beharko dituzte: **aurkez** aurke edo desafioa, eskua aldatzeko soinua edo alpargata izenekoa, agurra eta zortzikoa. Berria - Kultura

Pareta batean bermatua zen, ni **aurkez aurke** nintzela, espaloi mehartxo hartako erdi-erdian. Matías Múgica

Erran dizut bertze nonbait ezen jaun Marcel eta osaba Joanikot anitzetan egoiten zirela buruz buru eta **aurkez aurke**, baina nehoiz ere ez kolerak eta haserreak harturik. Joan Mari Irigoien

3 ***aurkez egon*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Aurkez egon nahi izan dutelako, bihoakie gure esker ona Batzorde Eragile Federalari eta haren ordezkari Alvaro Cuestari, Euskadiko Alderdi Sozialistari, Aragoiko Alderdi Sozialistari [...] eta beste hainbat eta hainbat kide sozialistari -hainbat instituzioetako goi arduradunak izaki-. ETC-prentsa

Aurrean dagoena **aurkez dago**, gauza ala biziduna izan eta orduan, aurkezten da edo bere burua aurkezten du. ETC-literatura, saiakera

---

aurkezgarri *iz* aurkezteko modukoa.

Euskararen alde ari zirela zioten, euskara zen borrokaren giderrik **aurkezgarriena**, botere bekaitza eta bereizketa politikoa ez aipatzeko. Itxaro Borda

aurkezle 1 *iz* zerbait aurkezten duen pertsona.

Estalki apropos hura aukeratu zuten hiru **aurkezleek** jende aurrean azaltzeko. Karlos Linazasoro

Zamarraz eta txapelaz beztitu **aurkezlea**, punpean hupatu zen taula gainera. Itxaro Borda

Bertze hainbesteko kopuru bat badago lanean ari dena txapelketa horri buruz arlo tekniko diferentetan dotzena bat antolatzailetan, dotzena bat gai jartzaile eta **aurkezletan** eta hamar bat epailetan. Herria

Aurkezle batek taldearen izena esan zuen, eta, berehala, musika leun ederra irristatu zen gure belarrietan. Aritz Gorrotxategi

Bada, programako **aurkezle** edo gonbidatuak fuck edo shit bezalako hitz sakrilegoren bat esango balu, hitz hori pii ziztu batekin ezabatzeko helburuz. Harkaitz Cano

Seguruenik konturatu zarete gaur, bi barik, **aurkezle** bakarra dagoela gure irratsaioan. Jon Arretxe

Zenbait kazetari eta telebista **aurkezle** atentatuez baliatu dira komunitate jakin baten aurka egiteko, eta hori ez da inolaz ere zuzena. Berria - Harian

Eta hainbesteko gogoz non hasi orduko **aurkezleak** oharra eman behar izan zuen, eserita egoteko mesedez, izango zela-eta dantzarako aukera atsedenaldian. Iñigo Aranbarri

Su festak, koloreetako argiak, NBA estiloko **aurkezlea**, denetarik prestatu zuten Osasunako zuzendariek, baina giroa inoiz baino hotzagoa izan zen. Berria - Kirola

Egitarauaren barruan, **aurkezleak** emakumeen ohorez hitz egiten zuen, eta borroka politikoan eta sozialean parte hartzera bultzatzen. Juan Kruz Igerabide

Aurkezlearen beraren telefono zenbakia eman zidaten. Joxan Elosegi

Hiru **aurkezleak**, psikiatrak balira bezala, hurbil-hurbil eseri zitzaizkion Bonillari ondoan. Karlos Linazasoro

2 *telebista aurkezle*

Noiz ikusi dituzue **telebista aurkezle** beltz edo arabeak, noiz enpresaburu beltzak? Berria - Harian

Telebista aurkezle ezagun batek tratu txarrak jaso dituela salatu du. Berria - Gaiak

Amaia Jackson **telebista aurkezleak** eman zien, jarraian, sarrera hizlariei. Berria - Euskal Herria

Agian gai honekiko interesa famili harremanetatik datorkio Clooneyri, ez baita alferrik zuzendariaren aita **telebista aurkezle** eta politikari demokrata izandakoa. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurkezle batek** (3); **aurkezle lana** (3); **aurkezle lanak** (7); **telebista aurkezle** (5); **telebistako aurkezle** (4)
> **hiru aurkezleak** (6); **hizlari aurkezleak** (3); **telebista aurkezleak** (4)
> **bi aurkezleek** (3); **hiru aurkezleek** (7)

---

aurkezpen 1 *iz* norbait edo zerbait aurkeztea; horretarako antolatzen den ekitaldia.

Ez duk **aurkezpenik** egin beharrik. Irene Aldasoro

Gregoryk, Joseba ikusi bezain laster, mahaira zedila eskatu zion eta **aurkezpenak** egin zituen. Iñaki Zabaleta

Ondoren antolatu behar izan zuten **aurkezpen** faltsu bat lurreratze ofizialarekin, munduko egunkari guztietan argitaratuko zena. Pello Salaburu

Aurkezpenak egin ondoren, hizkera bitxiko agureak paketea lepoan hartu eta jarraitzeko eskatu zigun, eguna pasatzeko tokira eramango gintuela esanez. Jon Arretxe

Ez nintzen ohartua -salatu nion, **aurkezpenez** zuhur norbait enekin horrela deblauki mintzatzeaz harritua. Itxaro Borda

-Hasi kontatzen, ez dugu denbora askorik **aurkezpenetan** ibiltzeko. Javi Cillero

Halatsu izango zen bere **aurkezpenaren** itxura, baina orain, momentu honetan, aulki huts baten aldamenean tinko eserita, han ez zegoen ezeren itxurarik. Anton Garikano

Orduan konturatu ginen artean ez genuela **aurkezpenik** egin. Juan Martin Elexpuru

Wilmarth andereñoa gelara sartzearekin bat amaitu zen iskanbila zaratatsu hura eta Gerald **aurkezpenak** egitera aurreratu zen. Mirentxu Larrañaga

2 *iz* (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa).

Ez duzu eragozpenik izanen, zure **aurkezpen** gutuna eder horren eskuetara helarazteko ez bada; eta eragozpen hori berehala suntsi ezazu, neskatila horri nire gelazainaren baliabidea jakinaraziz. Jon Muñoz

Aurkez biezaiote Jaunari, erritozko **aurkezpen**-keinua eginez. Elizen arteko biblia

Egun batez, idatzi bat erakutsi zien -besteen ideia zaparradaren aterrune batean- erakundeetan **aurkezpen** modua egiteko, eta bere asmoa azaldu zien. Iñaki Iñurrieta

Kota-uztaian zut, bekokia urdin eta luma-muturrak gorri; huraxe bai ikur biribila, alajaina, teknikolorezko estatubatuar filmen **aurkezpen**-fotogrametarako. Jon Muñoz

3 ***aurkezpen digital*** *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Aurkezpen digitalak jendaurreko diskurtso edo hitzaldietan hizlariak erabiltzen duen aurkezpen edo komunikatzeko teknika bat da, non diskurtsoa aurretik prestatu eta era digitalean sortutako testu eta irudiekin, maiz "diapositiba" moduan eraturik, osatzen den. ETC-entziklopedia

2010ean, garatzaileek arbel bat gehitu zuten kargatutako **aurkezpen digitalean** bat-bateko ekarpenak egiteko. ETC-entziklopedia

Ikasleek azal dezakete ikasi dutena **aurkezpen digital** edo beste baliabideren baten bitartez. ETC-entziklopedia

Ildo horretan, **aurkezpen digitalek** eta diziplinarteko emanaldiek leku nabarmena ukan dute NOW jardunaldietan. ETC-prentsa

Aurkezpen digital horrekin batera, harri desberdinak erabiliz artelan bat ere osatuko dute eta ikasgelako blogean zintzilikatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

4 ***aurkezpen geruza*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Aurkezpen geruza: Datuak modu ulergarrian iristeaz arduratzen da. ETC-entziklopedia

Saio geruzak **aurkezpen geruzako** entitateen arteko elkarrizketak antolatzea, sinkronizatzea eta datu-transferentzia gardena kudeatzea ditu helburu. ETC-entziklopedia

5 ***aurkezpen-kapote*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Gazte-gaztetik, 1897tik, nobilladak toreatzen aritu bazen ere, 1900ko maiatzean, Paquiro eta Facultades aurkariak zituela, **aurkezpen-kapote** propioa lortu zuen sari gisa. ETC-entziklopedia

6 ***aurkezpen-paseo*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Horren aurretik, egingo dute **aurkezpen paseoa**, halere. ETC-prentsa

Eta ondo antzeztu dut **aurkezpen-paseoa**... hobeto, ezta torero batek ere. ETC-literatura, saiakera

7 ***aurkezpen programa*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Aurkezpen programa edo diapositiben aurkezpen programa informazioa aurkezteko software paketea da, diapositiba batzuen bidez normalean. ETC-entziklopedia

8 ***diapositiba aurkezpen*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

MS Power Point edo Open Office Impress aplikazioetan bezalako editore bat agertuko da orduan, diapositibaz **diapositiba aurkezpenak** sortzeko. ETC-prentsa

Bi pertsonaien **diapositiba-aurkezpena**, deskribapenak eta bakoitzaren nortasun digitalari buruzko informazioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Diapositiba aurkezpen batean ez dira hiru letra-tipo baino gehiago erabili behar. ETC-entziklopedia

LMS batek edukiak onartzen ditu hainbat formatutan: testua, bideoa, audioa, **diapositiba aurkezpenak**, eta abar. ETC-entziklopedia

Ikasleek, bakarka edo kideen laguntzarekin, beste ikaskideen aurrean azalpenak, deskripzioak, **diapositiba aurkezpenak**, laburpenak edota beste hainbat diskurtso mota praktikatuz aurrera egingo dutela uste da; hizkuntza jendaurrean erabiltzen, hizkuntza ikasiko dela defendatzen du komunikazio-ikuspegiak. ETC-entziklopedia

9 ***jendaurreko aurkezpen***

Biharamunean, lehenengo liburua zekarren norbaiten **jendaurreko aurkezpena** egin genuen (hemen ere gisakoa izango da xehetasunak isiltzea). Berria - Kultura

Nafarroa Bai atzo hasi zen **jendaurreko aurkezpenak** egiten. Berria - Euskal Herria

Horren ostean, hogeita hamar **jendaurreko aurkezpen** egiteko asmoa dute Gazte Bilgunekoek, hausnarketa prozesua gehiago zabaltzeko. Berria - Harian

Esker oneko jendetxoa da, eta printzesaren **jendaurreko aurkezpen**-dantzaldian (**jendaurreko aurkezpena** urte bi betetzen dituztenean izaten da, eta hilero betetzen dituzte urteak) bere bihotzeko desiorik onena eskaini zioten Peterri. Julen Gabiria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzoko aurkezpen ekitaldian (4)

aurkezpen argi (3); **aurkezpen birari** (4); **aurkezpen egokia** (3); **aurkezpen egunean** (20); **aurkezpen ekitaldi** (5); **aurkezpen ekitaldia egingo** (3); **aurkezpen ekitaldian izan** (3); **aurkezpen ekitaldira** (6); **aurkezpen festa** (6); **aurkezpen gisa** (6); **aurkezpen guziak azaltzea** (5); **aurkezpen hau** (5); **aurkezpen hori** (6); **aurkezpen horretan** (4); **aurkezpen jaialdia** (4); **aurkezpen keinua eginez** (15); **aurkezpen kontzertu** (3); **aurkezpen kontzertuak** (6); **aurkezpen laburra** (3); **aurkezpen lanak** (6); **aurkezpen lanetan** (3); **aurkezpen ofiziala egin** (3); **aurkezpen ofizialean** (3); **aurkezpen orokorra** (4); **aurkezpen publiko** (4); **aurkezpen publikoa** (5); **aurkezpen publikoan** (3); **aurkezpen testuak** (3); **aurkezpen txartel** (4); **aurkezpen txartela** (5)

barne aurkezpen (5); **berriaren aurkezpen** (7); **diskoaren aurkezpen** (4); **du aurkezpen** (3); **dute lehen aurkezpen** (3); **ekitaldiaren aurkezpen** (3); **erritozko aurkezpen keinua** (13); **euskal literaturaren aurkezpen** (3); **jaialdiaren aurkezpen** (6); **lehen aurkezpen kontzertua** (6); **lehenengo aurkezpen** (4); **liburu aurkezpen bat** (3); **liburuaren aurkezpen** (3); **musikherriaren aurkezpen** (3); **nire aurkezpen** (4); **ren aurkezpen** (3); **taldearen aurkezpen ofiziala** (5); **zen aurkezpen** (7); **zuen aurkezpen** (3); **zuten aurkezpen** (6)

abiapuntuaren aurkezpena (3); **atzoko aurkezpena** (3)

aurkezpena atzo egin (3); **aurkezpena baino** (4); **aurkezpena baliatu zuen** (3); **aurkezpena bihar** (3); **aurkezpena bilbon egin** (3); **aurkezpena egin du** (3); **aurkezpena egin zuen** (10); **aurkezpena egin zuenean** (3); **aurkezpena egin zuten** (5); **aurkezpena eginen da** (5); **aurkezpena eginen du** (3); **aurkezpena egingo da** (5); **aurkezpena egingo du** (7); **aurkezpena egingo dute** (6); **aurkezpena egitean** (6); **aurkezpena egiteko** (15); **aurkezpena egiten** (7); **aurkezpena egiterakoan** (3); **aurkezpena ere** (6); **aurkezpena euskal** (3); **aurkezpena gaur** (7); **aurkezpena izan** (3); **aurkezpena larunbatean** (3); **aurkezpena uztailaren** (3); **aurkezpena zen** (6)

barne aurkezpena (4); **bere buruaren aurkezpena** (4); **berriaren aurkezpena eginen** (4); **berrien aurkezpena** (5); **bildumaren aurkezpena** (5); **da aurkezpena** (3); **diska berriaren aurkezpena** (4); **diskaren aurkezpena** (3); **diskoaren aurkezpena** (5); **egin zuen aurkezpena** (6); **egin zuten aurkezpena** (8); **egingo du aurkezpena** (6); **egingo dute aurkezpena** (3); **egitasmoaren aurkezpena** (6); **ekitaldien aurkezpena** (3); **eleberriaren aurkezpena** (3); **elkarren aurkezpena egin** (3); **erakusketaren aurkezpena** (3); **filmaren aurkezpena** (3); **gunearen aurkezpena** (3); **gutunaren aurkezpena** (4); **haren aurkezpena** (7); **hautagaien aurkezpena egin** (3); **hautagaitzaren aurkezpena** (3); **horren aurkezpena egin** (3); **hunen aurkezpena eginen** (3); **idatzi liburuaren aurkezpena** (3); **jaialdiaren aurkezpena** (3); **jendaurreko aurkezpena** (7); **lanaren aurkezpena** (4); **lanen aurkezpena** (4); **lehen aurkezpena** (3); **lehenengo aurkezpena** (4); **liburu aurkezpena** (9); **liburu baten aurkezpena** (4); **liburu berriaren aurkezpena** (3); **nire aurkezpena** (3); **obraren aurkezpena** (4); **programaren aurkezpena** (3); **proiektuaren aurkezpena** (5); **proposamenaren aurkezpena** (4); **proposamenen aurkezpena** (4); **ren aurkezpena** (3); **taldearen aurkezpena** (7); **txapelketaren aurkezpena** (3); **txostenaren aurkezpena** (6)

aurkezpenak egin ondoren (4); **aurkezpenak egin zituen** (10); **aurkezpenak egingo** (4); **aurkezpenak egiten** (6); **ditu aurkezpenak** (4); **egin zituen aurkezpenak** (3); **liburu aurkezpenak** (7)

aurkezpenaren aurretik (5); **aurkezpenaren harira** (3); **aurkezpenaren ondoren** (6); **aurkezpenaren ostean** (6); **bere aurkezpenaren** (3)

aurkezpenari dagokionez (3)

atzo aurkezpenean (11); **atzo egindako aurkezpenean** (4); **atzoko aurkezpenean adierazi** (4); **atzoko aurkezpenean azaldu** (4); **aurkezpenean adierazi zuenez** (9); **aurkezpenean atzo** (3); **aurkezpenean azaldu zuenez** (17); **aurkezpenean azaldu zutenez** (6); **aurkezpenean azpimarratu zuenez** (3); **aurkezpenean bertan** (3); **aurkezpenean egin zituen** (8); **aurkezpenean egin zuen** (3); **aurkezpenean esan zuenez** (3); **aurkezpenean izan ziren** (7); **aurkezpenean nabarmendu** (3); **aurkezpenean parte** (7); **barne aurkezpenean** (4); **baten aurkezpenean** (3); **bere aurkezpenean** (6); **berriaren aurkezpenean** (10); **diskoaren aurkezpenean** (3); **donostian egindako aurkezpenean** (3); **egin zen aurkezpenean** (3); **egin zuen aurkezpenean** (4); **egin zuten aurkezpenean** (4); **egitarauaren aurkezpenean** (3); **ekitaldiaren aurkezpenean** (6); **erakusketaren aurkezpenean** (6); **filmaren aurkezpenean** (3); **izan zen aurkezpenean** (3); **izan ziren aurkezpenean** (3); **kanpainaren aurkezpenean** (7); **liburuaren aurkezpenean** (30); **nobelaren aurkezpenean** (3); **partidaren aurkezpenean** (3); **planaren aurkezpenean** (5); **proiektuaren aurkezpenean** (3); **ren aurkezpenean** (3); **txapelketaren aurkezpenean** (9); **txostenaren aurkezpenean** (9); **zen atzoko aurkezpenean** (3); **ziren atzoko aurkezpenean** (4); **zuen atzoko aurkezpenean** (8)

barne aurkezpeneko (3)

aurkezpenik egin (7)

---

aurkeztarazi, aurkeztaraz, aurkeztarazten du *ad* aurkeztera behartu.

Judaren leinuko senitarteak **aurkeztarazi** eta Zerahen senitartea gertatu zen izendatua. Zerahen senitarteko etxeak **aurkeztarazi** eta Zabdiren etxea gertatu zen izendatua. Elizen arteko biblia

---

aurkeztatu, aurkezta, aurkeztatzen *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)* du *ad* irudikatu.

Darwinek geologiako, botanikako, zoologiako autoritate ospetsuenak **aurkeztatzen** ditu, eta bere-bere esperimentu eta behapen ugariak jaulkitzen ditu oroz gain. ETC-literatura, saiakera

Baina ikerketarik korapilatsuena da Golombok-ek **aurkeztatukoa**, era askotara ulertu eta interpretatua izan dena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zientzia Fakultatean prestatu ziren UPV/EHUn euskaraz **aurkeztatutako** tesinetako asko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Testuan **aurkeztatutako** teknologiak edo aplikazio aipagarriak seinalatzen ditu trenaren ikonoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aurkezte *iz* norbaiten aurrean agertzea; aurkezpena.

Arreta berezia jarri dio pertsonaia ongi marraztuak **aurkezteari**. Xabier Olarra

Azpimarratu behar dugu berek egiten dutela beren **aurkeztea**, lehenik euskaraz, gero frantsesez. Herria

Hala ere, adeitsuagoa litzateke erronka egin duenak bere burua **aurkeztea**. Agustin Otsoa

Sinpleegia iruditzen zitzaion kaligrafiatzearen azalpena, fitxak ulertzeko moduan **aurkeztearena**. Iñaki Iñurrieta

Kontratua pertsona batek egiten duenean, errenta aitorpena **aurkeztea**. Berria - Harian

-Gaur ere hemen izango dira, beharbada -esan zuen Eligiok-; **aurkeztea** egingo dizut, nahi baduzu. Josu Zabaleta

Delitu hauen apologia ez da bakarrik egitate kriminala laudagarri **aurkeztea** eta egiten duenaren jokamoldea txalogarri, baita delituen handia txikiagotzea, sinpatikoak egin litezkeen ezaugarriakaz **aurkeztea** ere. Koldo Izagirre

Esentzian, hala ere, hasierako asmo hari eusten dio, plazetako bertsoak **aurkeztea** du helburu. Berria - Kultura

Hitzaurre horri leku ematea beste pertsonaia bat sortzea zatekeen -Cervantes-, baina horrek Kixotea pertsonaia horren arabera **aurkeztea** zekarkeen noski, eta ez Menard-en arabera. Juan Garzia

---

aurkeztegi *iz* erakusleihoa.

Botika itxi berria, bazkari bitartekoa kalez kale egiteko asmoa zeukan, salgaiez urri hornitutako **aurkeztegiak** ikusten eta herritar zintzoarena betetzen bati eta besteari agur legea eginez. Josu Landa

---

aurkeztu, aurkez(tu), aurkezten **1** da *ad* norbaiten aurrean agertu.

Horregatik, ahul eta beldurrez dardar **aurkeztu** nintzen zuen aurrean. Elizen arteko biblia

Hiru alderdietako hautagai bat **aurkeztuko** da Iparraldeko hiru bozguneetan, eta bertze alderdiek sustengatuko dute. Herria

Oraingoz Patxi Izko egungo presidenteak soilik erran du **aurkeztuko** dela, eta hautagai izan nahi dutenek hilaren 20a arte dute hautagaitza **aurkezteko** epea. Berria - Kirola

Belasko eta lagun gazteak boluntario **aurkeztu** ziren, jende adoretsua zirela erakutsiz berriro ere. Joanes Urkixo

-Gizon bat **aurkeztu** da transformadorearen sabotajearen egile bezala. Josu Zabaleta

Besteak beste, paradigma eta sintagma ez dira bikote modura **aurkezten**, ez baitzait etiketak kokatzea interesatzen, kontzeptuak berez ulertzea baizik. Lourdes Oñederra

Unibertsitateak, jakingo duzunez, proba hauetara **aurkezten** direnei azterketak egiteko epaimahai bereziak antolatzen ditu. Pello Salaburu

2 du *ad* norbaiten aurrean, hark ikus, ezagut edo azter dezan, zerbait edo norbait jarri.

Stephen Hawkingek zulo beltzei buruzko teoria **aurkeztu** du erlatibitateari buruzko biltzarrean. Berria - Gaiak

Esan zion astronautak gure hirira etorri bezain pronto **aurkeztu** egingo zizkiola. Koro Navarro

Familiako bat, esan zioten epaileari zu **aurkeztean**, eta zuk baietz buruarekin, familiakoa zinela. Hasier Etxeberria

Barkatu, oraindik ez dut nire burua **aurkeztu**. Eider Rodriguez

Yoyes Mexikotik etorri berritan ezagutu nuen, oposizioak prestatu behar zituela-eta ezagun batek lagun niezaion **aurkeztu** zidanean. Agurtzane Juanena

-Adiskide bat **aurkeztu** nahi dinat. Anjel Lertxundi

Esaten zutenez, **aurkeztu** zizkioten hogeita hamar emakumeren artetik aukeratu zuen emaztea. Juan Kruz Igerabide

Nik neure burua **aurkeztu** nuen. Jon Maia

-Nire burua **aurkeztuko** dut -esan nion-. Patxi Ezkiaga

Bestalde, hark zion Mari **aurkeztu**, eta maite zuten, biek ukaiten ahalko zuten alaba bailitzan. Elena Touyarou

Ideia positiborik berek ez dute bat bakarra **aurkezten**, gauzak nola alda litezkeen. Joxe Azurmendi

3 *armak aurkeztu*

Eta horri esaten zitzaion Giosuè Carducciri **armak aurkeztea**. Pello Lizarralde

Kexu zeuden eskolara etorri eta beti denak ikusi behar kirtena galtzetatik ateratzen Giosuè Carducciri **armak aurkezteko**. Pello Lizarralde

Hau idatzi aurreko laurehun urteetan jadanik, eliza hori guardian egon da, jarrera oso zurrunean eta zaintza lasaitugabeaz, aitasantutzaren kasketaz eta hierarkiaren bular-babeskiaz astun blindatua, eta etengabe Jainkoari **armak aurkeztuz** liturgia zorrotzaren erritmo errepikakorrean. Iñaki Mendiguren

Urteeran, mikelete piketeak **armak aurkeztu** zituen errege-martxa jotzen zen bitartean eta sei zaldik tiraturiko kotxe girotuan sartu zuten katabuta. Koldo Izagirre

4 *helegitea aurkeztu*

Hauteskunde Batzordeak erabaki behar du aurrena hautagaitzen legezkotasunaz, baina ondoren Auzitegi Gorenean **helegitea aurkez** dezakete Espainiako Gobernuak, Estatuko Fiskaltzak edo alderdi politikoek. Berria - Euskal Herria

Euskalerria irratiak **helegitea aurkeztu** zuen erabaki horren kontra, eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak kontuan hartu du. Berria - Euskal Herria

Sententzia oso sendoa da, eta uste genuen **helegitea aurkezteko** aukera aztertu ere ez zuela eginen Itoizko Koordinakundeak. Edurne Elizondo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

agiria aurkeztu (13); **alegazioak aurkeztu** (18); **atzo aurkeztu zituen** (15); **atzo aurkeztu zuen** (75); **atzo aurkeztu zuten** (76); **aurkako helegitea aurkeztu** (17)

aurkeztu ahal izango (18); **aurkeztu ahal izatea** (13); **aurkeztu ahal izateko** (30); **aurkeztu aurretik** (24); **aurkeztu behar du** (19); **aurkeztu beharko du** (18); **aurkeztu beharko dute** (12); **aurkeztu beharreko** (11); **aurkeztu berri du** (19); **aurkeztu berri duen** (16); **aurkeztu berri duten** (12); **aurkeztu da** (44); **aurkeztu den** (15); **aurkeztu dio** (27); **aurkeztu diote** (11); **aurkeztu diren** (39); **aurkeztu ditu** (111); **aurkeztu dituen** (23); **aurkeztu ditugu** (16); **aurkeztu dituzte** (109); **aurkeztu dituzten** (12); **aurkeztu dizkio** (15); **aurkeztu dizkiote** (20); **aurkeztu duen** (62); **aurkeztu duten** (30); **aurkeztu edo** (14); **aurkeztu egin** (15); **aurkeztu ere** (15); **aurkeztu ez** (17); **aurkeztu ezin** (11); **aurkeztu gabe** (17); **aurkeztu genuen** (13); **aurkeztu izan** (26); **aurkeztu izana** (16); **aurkeztu nahi izan** (13); **aurkeztu nuen** (17); **aurkeztu ondoren** (42); **aurkeztu ostean** (19); **aurkeztu zen** (153); **aurkeztu zenean** (15); **aurkeztu zidan** (11); **aurkeztu zien** (45); **aurkeztu zieten** (16); **aurkeztu zion atzo** (17); **aurkeztu zioten** (44); **aurkeztu ziren** (86); **aurkeztu zituen atzo** (42); **aurkeztu zituzten atzo** (25); **aurkeztu zizkion** (15); **aurkeztu zizkioten** (12); **aurkeztu zuela** (12); **aurkeztu zuen atzo** (213); **aurkeztu zuen bere** (20); **aurkeztu zuen espainiako** (12); **aurkeztu zuenean** (41); **aurkeztu zuenetik** (15); **aurkeztu zuten atzo** (123); **aurkeztu zutenean** (15)

aurrean aurkeztu (40); **aurrera aurkeztu** (13); **bana aurkeztu** (16); **batean aurkeztu** (19); **batek aurkeztu** (11); **batera aurkeztu** (17); **bateratua aurkeztu** (15); **batzuk aurkeztu** (14); **berak aurkeztu** (11); **bere burua aurkeztu** (31); **berri bat aurkeztu** (19); **berria aurkeztu zuen** (11); **bertan aurkeztu** (15); **besteko proposamena aurkeztu** (26); **bezala aurkeztu** (31); **bozetara aurkeztu** (13); **burua aurkeztu zuen** (17); **buruzko txostena aurkeztu** (16); **dimisioa aurkeztu zuen** (32); **egitasmoa aurkeztu** (26); **ekimena aurkeztu** (23); **emaitzak aurkeztu** (12); **ere aurkeztu** (79); **errekurtsoa aurkeztu** (11); **eskaera aurkeztu** (20); **espedientea aurkeztu** (12); **eusko legebiltzarrean aurkeztu** (15); **filma aurkeztu** (15); **gisa aurkeztu dute** (12); **gisa aurkeztu zuen** (19); **hautagai aurkeztu** (15); **hautagaitza aurkeztu** (25); **hauteskundeetan aurkeztu** (15); **hauteskundeetara aurkeztu ahal** (12); **helegitea aurkeztu du** (37); **helegitea aurkeztu zuen** (73); **helegitea aurkeztu zuten** (31); **helegiteak aurkeztu** (11); **helegiterik aurkeztu** (18); **herenegun aurkeztu zuen** (11); **hori aurkeztu** (16); **idatzia aurkeztu** (11); **izenean aurkeztu** (13); **kanpaina aurkeztu** (13); **kereila aurkeztu** (11); **lan aurkeztu dira** (14); **lana aurkeztu** (16); **lanak aurkeztu** (14); **lege proposamena aurkeztu** (16); **liburua aurkeztu du** (11); **liburua aurkeztu zuen** (16); **liburua aurkeztu zuten** (12); **madrilen aurkeztu** (11); **moduan aurkeztu** (12); **mozioa aurkeztu zuen** (15); **nagusiak aurkeztu** (11); **osoko zuzenketa aurkeztu** (37); **plan bat aurkeztu** (13); **plana aurkeztu zuen** (21); **programa aurkeztu** (16); **proiektu bat aurkeztu** (12); **proiektua aurkeztu zuen** (17); **proposamen bat aurkeztu** (26); **proposamena aurkeztu du** (30); **proposamena aurkeztu dute** (14); **proposamena aurkeztu zuen** (35); **proposamena aurkeztu zuten** (12); **proposamenak aurkeztu** (11); **salaketa aurkeztu zuen** (19); **salaketa aurkeztu zuten** (11); **sinadura aurkeztu** (16); **taldea aurkeztu** (11); **txosten bat aurkeztu** (17); **txostena aurkeztu du** (13); **txostena aurkeztu zuen** (32); **txostena aurkeztu zuten** (13); **zerrenda aurkeztu** (23); **zerrendak aurkeztu** (11); **zuzenketa aurkeztu zion** (11); **zuzenketa partzial aurkeztu** (11); **zuzenketak aurkeztu** (23)

aurkez daitezke (14)

aurkeztea da (22); **aurkeztea erabaki** (35); **ez aurkeztea** (23); **gisa aurkeztea** (12); **hauteskundeetara aurkeztea** (14)

liburua aurkeztean (11)

aurkezteaz gain (17)

alegazioak aurkezteko (17); **aurkezteko asmoa du** (14); **aurkezteko aukerarik** (15); **aurkezteko egindako** (14); **aurkezteko eskatu** (21); **aurkezteko eskubidea** (21); **aurrean aurkezteko** (17); **berria aurkezteko** (14); **diskoa aurkezteko** (13); **elkarrekin aurkezteko** (18); **ez aurkezteko** (16); **hautagaitza aurkezteko** (14); **hautagaitzak aurkezteko epea** (11); **hauteskundeetan aurkezteko** (24); **hauteskundeetara aurkezteko** (37); **helegitea aurkezteko aukera** (17); **helegiteak aurkezteko** (13); **lanak aurkezteko epea** (14); **liburua aurkezteko** (18); **proiektua aurkezteko** (13); **proposamenak aurkezteko** (14); **zuzenketak aurkezteko epea** (19)

aurkeztekoa zen (11)

aurkezten ari (20); **aurkezten bada** (14); **aurkezten da** (40); **aurkezten den** (31); **aurkezten digu** (17); **aurkezten dira** (29); **aurkezten diren** (40); **aurkezten ditu** (36); **aurkezten dituen** (21); **aurkezten dituzte** (17); **aurkezten du** (83); **aurkezten duen** (41); **aurkezten dute** (26); **aurkezten ez** (23); **aurkezten zen** (11); **aurkezten zuen** (11); **bezala aurkezten** (36); **burua aurkezten** (11); **gisa aurkezten** (52); **moduan aurkezten** (11)

aurkeztua izan da (14); **aurkeztua izanen da** (16)

aurkeztuak izan (15)

aldiz aurkeztuko (12); **aurkeztuko da** (142); **aurkeztuko dela** (36); **aurkeztuko den** (36); **aurkeztuko die** (18); **aurkeztuko dio** (34); **aurkeztuko dira** (81); **aurkeztuko diren** (27); **aurkeztuko ditu** (115); **aurkeztuko dituen** (12); **aurkeztuko ditugu** (13); **aurkeztuko dituzte** (97); **aurkeztuko dituztela** (13); **aurkeztuko dizkio** (11); **aurkeztuko du bere** (14); **aurkeztuko du bihar** (16); **aurkeztuko du gaur** (34); **aurkeztuko duela iragarri** (17); **aurkeztuko duen** (53); **aurkeztuko dugu** (15); **aurkeztuko dut** (11); **aurkeztuko dute gaur** (23); **aurkeztuko dutela iragarri** (12); **aurkeztuko duten** (31); **bakarrik aurkeztuko** (11); **berria aurkeztuko du** (20); **berriz aurkeztuko** (13); **bertan aurkeztuko** (14); **bihar aurkeztuko** (18); **bozetara aurkeztuko** (12); **datorren astean aurkeztuko** (11); **diskoa aurkeztuko du** (32); **ere aurkeztuko** (38); **gaur aurkeztuko du** (21); **gaur aurkeztuko dute** (16); **gisa aurkeztuko** (19); **hauteskundeetara aurkeztuko** (28); **helegitea aurkeztuko du** (28); **helegitea aurkeztuko duela** (14); **ikuskizuna aurkeztuko du** (13); **lana aurkeztuko du** (21); **liburua aurkeztuko du** (16); **mozioa aurkeztuko** (18); **mozioak aurkeztuko** (15); **plana aurkeztuko** (12); **proposamena aurkeztuko du** (17); **txostena aurkeztuko** (17); **zuzenketa aurkeztuko** (13)

abokatuek aurkeztutako (11); **atzo aurkeztutako** (58); **aurka aurkeztutako** (22); **aurkeztutako babes** (11); **aurkeztutako estatutu** (11); **aurkeztutako helegitea** (32); **aurkeztutako legez besteko** (18); **aurkeztutako osoko** (20); **aurkeztutako proposamena** (22); **aurkeztutako txostena** (11); **aurkeztutako zatikako** (12); **aurkeztutako zuzenketa** (12); **aurkeztutako zuzenketak** (25); **eusko jaurlaritzak aurkeztutako** (11); **eusko legebiltzarrean aurkeztutako** (12); **herenegun aurkeztutako** (13); **oposizioak aurkeztutako** (13); **proposamenari aurkeztutako** (12); **taldeak aurkeztutako** (11); **taldeek aurkeztutako** (14)

aurkeztuz gero (13)

---

aurki[1] *iz* oihaletan, ehunetan edo beste hainbat gauzatan, alde nagusia, begien aurreko aldea.

Xaxik aitortu zidanez tragikoki bitxi kausitzen zuen biziaren zoriona eta tristura sakona, bizia deitzen zen txanponaren bi aldeak, hots, **aurkia** eta binperra, egiazko Erronkariko Boboaren antzera. Itxaro Borda

Nik badiat pizarren bat emakumetik, **aurkiren** bat ere bai iraultzailetik, eta umetik berriz dexente. Patziku Perurena

Bi euskal taldeei dagokionean, **aurkia** eta ifrentzua. Berria - Kirola

Aitzin eta gibel, **aurkiz** eta ifrentzuz, konkistatzaile indiar-jale baten irudia zeraman paper puska muskerraren angelu eta azalera ezberdinek eskaini ahala aukerez baliatu

nintzen, burdin meta horren zirkuituzko bihotza beratu gabe. Aingeru Epaltza

Garaipenaren eztiak galtzaileen mikatza du bestaldea, **aurkiak** bere ifrentzua bezala, eta beste taldeetakoek, iristen doazen neurrian, buru-makur eta inbidia-punttu batez begiratu diete irabazleei. Xabier Mendiguren Elizegi

Handi-**aurkietara** bagoaz, izendatze modu goitar batek ezarritako kontinente eta estatuetan bereizia ikusten dugu, halaxe izan baita mundua mundu hau denetik. Iñaki Segurola

Kataluniako hezkuntza sisteman katalana ikasteko ereduek **aurkia** eta ifrentzua dituzte. Berria - Euskal Herria

2 ***handi-aurki*** handiena.

Lehenagoko teologoentzat **handi**-aurkienak -Jainkoak- esplikatzen bazuen Dena, oraingoentzat ttiki-aurkienak -partikula elementalak- esplikatzen du. Iñaki Segurola

Handi-aurkietara bagoaz, izendatze modu goitar batek ezarritako kontinente eta estatuetan bereizia ikusten dugu, halaxe izan baita mundua mundu hau denetik. Iñaki Segurola

3 ***txiki-aurki*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Baina sumatzen dut herri honek kulturgintzan handira jo beharra daukala, beti **txiki-aurkiak** jasotzen dituenak jakina baita luzera jokoa galdu egiten duela. ETC-prentsa

Ez zen pipertu, eta esan: "Aizu! Ni ez nator hona besteek utzitako **txiki-aurkiak** jatera!". ETC-prentsa

---

aurki[2] **1** *adlag* hemendik denbora gutxiren buruan. ik **laster**.

-Hilko naiz **aurki** eta han ahaztuko zait. Alberto Barandiaren

Aurki hasi zen erromeriak jotzen, hasieran dozena erdi pieza menderatuz eta haiek errepikatuz. Pako Aristi

Aurki zabaldu zion Mathildek atea. Anjel Lertxundi

Laster arrautzak uzkurtu eta goratu egin zitzaizkidan, **aurki** hazia isuriko nuen seinale. Aitor Arana

Oraintsu irauli zuten azken galdaketa eta **aurki** itxiko dute etxeak eraikitzeko. Urtzi Urrutikoeetxea

-Aurki hutsik geratzekoa den higiene-mediku lanpostu bat baizik ezin dizugu eman. Josu Zabaleta

2 ***aurki arte***

-Aurki arte, datorren larunbata arte. Matías Múgica

-Orduan **aurki arte**, esan bezala -erantzun zidan nagusiak. Matías Múgica

Aurki arte agian. Txillardegi

Eta **aurki arte**! Txillardegi

---

aurki[3] *adlag* antza, dirudienez.

Lotsati ere senti ohi nintzen, ez neurekiko, **aurki**. Pello Zabala

Irabazia dut eskubidea, **aurki**, komandantea galdezka hasten zaidanean, herabe sentitzeko. Josu Zabaleta

Pentsatuko zuen: adurra izanez gero, afera honek berrogeita hamar dolar emanen dizkit, **aurki**. Monika Etxebarria

---

aurkiarazi, aurkiaraz, aurkiarazten du *ad* aurkitzera behartu.

Soldaduak nahiago izan zuen, beraz, atzera jotzea, Jainkoari eskatzen ziola atzerriko lurretako mentura hauetatik bizirik ateratzeko dohaina eskuratzen bazuen, **aurkiaraz** diezaiola hemen. Jon Alonso

---

aurkibide *iz* liburu bateko zati edo gaien kokalekua adierazten duen zerrenda, haren aurrean edo atzean ezartzen dena; informazio zerrenda hutsez osatutako argitalpena. ik **aurkitegi**.

-Parisko telefono **aurkibidean** aurkituko nauzu, menturaz. Javi Cillero

Aurkibidea elebiduna da, presidente orokorraren hitzaldia ere bai. Herria

Esatea nuke arrazoia haren telefono zenbakia aurkitu ezina izan zela, ez baitzetorren abonatuen **aurkibidean**, baina ez litzateke egia izango. Ramon Saizarbitoria

Gertaera garrantzitsuenen kronologiaz gain, zerrenda eta **aurkibide** ugari ere eskaintzen du, besteak beste, liburuak. Berria - Kultura

Telefono-**aurkibidean** egon balira, posible izango zatekeen estatu bietako herri eta hiri bakoitzeko informazio-telefonoetara deitu eta Hawthorne 87 helbidean bizi zen David Minor-en telefonoaz galde eginez haiek aurkitzea. Oskar Arana

Gero tren-**aurkibide** bat hartzen du. Antton Olano

Aurkibideak lagunduko dio nahi duen testura zuzen eta arin jotzen. Jose Antonio Mujika

Haietariko bakoitzean, azpimarratuta zegoen **aurkibideko** artikulu bat. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurkibide batekin buruan** (3); **telefono aurkibide batekin** (3)
> **aurkibidea hitzaurrea** (3); **gaien aurkibidea** (3); **izenen aurkibidea** (3)
> **telefono aurkibidean** (5)

---

aurkientza ik **aurkintza**.

---

aurkiezin *izond* aurkitzen ezinezkoa dena.

Itsasoan zehar igaro zinen, ur handien artetik oinez, baina inork zure aztarnarik **aurkiezin**. Elizen arteko biblia

Minik biziena, ordea, arima deitzen den leku **aurkiezinetik** lotua zitzaidan. Aingeru Epaltza

Benetako bizitza ezin da atzeman, baina Musil ez da nekatzen benetako bizitza horren atzetik joateaz, nahiz jakin badakien ezkutuan dagoela, **aurkiezina** dela. Juan Kruz Igerabide

Zaldun trebea eta ibiltari nekaezina, inguruetako mendi-zoko, ehizarako goi-barruti ezezagun, bazter **aurkiezin** eta ezkutaleku guztien ezagutza zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

aurkigaitz *izond* aurkitzen zaila dena, ia aurkiezina.

Duverger de Haurannek, Saint-Cyran-go abate famatuak, Port-Royalen fundatzaile kontsideratuak, tratatu bat idatzi zuen buru-hilketazi 1606an; Europako libururik **aurkigaitzenetakoa** da egun. Juan Martin Elexpuru

aurkigarri *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi) izond* aurki daitekeena, aurkitzeko modukoa.

Lauso samar, pentsa genezake erantsitako atomo astuna markatzaile **aurkigarria** dela, han diren beste atomo guztien artean bidea aurkitzen laguntzen diguna. ETC-literatura, saiakera

Papagomys armandvillei bat zehazki, oraindik ere bizirik **aurkigarri** Flores uhartean, baina, gaurko gizonak etengabe ehizaturik, azkar suntsitzekotan dagoena. ETC-literatura, saiakera

Fama txarra ez dugu guk irabazi, ordea, ipini egin digute diskurtso nagusiaren bozgorailuek, hain justu, feminismoaren tradizioa ozta-ozta **aurkigarri** egiten duten horiek beroriek. ETC-prentsa

Asmo nagusia idazki horietan **aurkigarriak** ziren osagai baliobikoizdunak azpimarratu eta Marxen irakurketa nolabait "kulturalista"go bat gauzatzea izango zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aurkigarritasun *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* aurkigarri izatearen nolakotasuna.

Ezagunak zaizkigun utopia guztiak objektiboki egiazkoak diren **aurkigarritasun** eta harmonian oinarrituak dira, egiazkoak gizaki guztientzat, aldi eta alde orotan. ETC-literatura, saiakera

Hori ahalbidetzeko dago informazioaren arkitektura, informazioa bizkorrago bilatzea da helburua, eta horri, **aurkigarritasun** horri, "findability" deitzen zaio. ETC-entziklopedia

---

aurkikunde *iz* aurkikuntza.

Aurkikundeak 60ko hamarkadan izan ziren atentatu separatisten beldurra susper dezakeela dio egunkariak. Anjel Lertxundi

Gaur egun edozein egiaztapen, **aurkikunde** edo teknikak, baita bitxienak ere, berekin nahi du zientziaren bedeinkapena. Iñaki Heras

Espinosak bere **aurkikundea** aipatu zien eta entzun ere ez zuten egin ia. Juan Garzia

Baina nolaz galarazi pentsatzea, nolaz geldiarazi hitzaren harat-honatak, joan-etorriak eta ustekabeko jolasak eta jokoak, **aurkikundeak** eta galbideak? Iñaki Segurola

Txunditurik utzi ninduen ondorengo **aurkikundeak**, urte haietako beste faktura batzuk gorderik zeuzkan gutun-zorroak. Joxan Elosegi

---

aurkikuntza *iz* ezagutzen ez zena aurkitzea, bereziki lurraldeez mintzatuz edo jakintza arloan; aurkitu den gauza bera. ik **aurkikunde**.

Zintzoki eta gardenki erakutsi dute **aurkikuntza** albistegi ospetsuenetan. Hasier Etxeberria

Angeloren gela aurretik pasatzerakoan, hango anabasa ikusita, begira gelditu nintzen atetik eta orduan ikusi nuen erasotzaileei pozezko oihuak eragin zizkien **aurkikuntza**. Anjel Lertxundi

Aurkikuntza berriak eginez osatuko da aro hortaz dugun ezagutza, eta behar bada egun batez jakinen dugu gure arbasoak noiz agertu ziren bazter hauetan. Herria

Badakizu orduan gai franko aipatu zirela, antropologia, biodinamika, filosofia, pintura eta bistan dena, sortzearen misterioari zegokion azken **aurkikuntza** hau. Itxaro Borda

Aurkikuntza hori baino lehen, egunez egun handiagotzen zen errimel orban iluna utzi nuen sofaren besoaren gainean. Sonia Gonzalez

Azken horrekin **aurkikuntza** itzela egin du Realak; denboraldi bukaeran amaituko zaio kontratua, baina jarraitzeko eskubidea irabazi du partida gutxitan. Berria - Kirola

Egongelako atea ireki zuen eskaileretan behera lasterka jaitsi eta gero, bertakoei bere **aurkikuntza** ikaragarriaren berri emateko. Aitor Arana

Komisariara komunikatu zuten **aurkikuntza** irratiz eta hortik New Harlemera joan zitezela agindu zieten. Iñaki Zabaleta

Bata, aitzindarien lanen berreskuratze eta aldarrikapena; bestea, literaturak (letrak elkarri josteak) eskaintzen dituen aukeren **aurkikuntza** eta ikerketa. Iñigo Aranbarri

Fionak azken zupada luzea eman dio zigarro bati, **aurkikuntzari** larregizko inportantziarik aitortu gabe. Lutxo Egia

Egia esan, ez nizkion neure buruari formulatzen nire **aurkikuntzak**. Monika Etxebarria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aurkikuntza bat** (15); **aurkikuntza baten** (8); **aurkikuntza berri** (3); **aurkikuntza berria** (3); **aurkikuntza berriak** (6); **aurkikuntza bitxi** (3); **aurkikuntza egin duten** (3); **aurkikuntza ez** (3); **aurkikuntza garrantzitsu** (3); **aurkikuntza garrantzitsua** (4); **aurkikuntza garrantzitsuak egin** (3); **aurkikuntza guztiak** (4); **aurkikuntza handiak** (4); **aurkikuntza hau** (7); **aurkikuntza honek** (8); **aurkikuntza honen** (6); **aurkikuntza honi esker** (3); **aurkikuntza hori** (20); **aurkikuntza horiek** (6); **aurkikuntza horrek** (12); **aurkikuntza horren berri** (4); **aurkikuntza horri** (4); **aurkikuntza hura** (7); **aurkikuntza izan zen** (5); **aurkikuntza ugari** (3)
>
> **azken aurkikuntza** (4); **azken urteotako aurkikuntza** (3); **baina aurkikuntza** (3); **baten aurkikuntza** (7); **bere aurkikuntza** (11); **beste aurkikuntza** (7); **bi aurkikuntza** (3); **buruzko aurkikuntza** (3); **da aurkikuntza** (4); **diren aurkikuntza** (4); **dituzte aurkikuntza** (3); **du aurkikuntza** (7); **dute aurkikuntza horren** (3); **edo aurkikuntza** (3); **egin dute aurkikuntza** (3); **egindako aurkikuntza** (9); **eman dute aurkikuntza** (3); **ere aurkikuntza** (3); **izan zen aurkikuntza** (3); **nire aurkikuntza** (7); **nuen aurkikuntza** (3); **sekulako aurkikuntza** (3); **zuen aurkikuntza** (6); **zuten aurkikuntza** (4)
>
> **aurkikuntzak bete** (3); **aurkikuntzak egin** (3); **aurkikuntzak egiten** (3); **bere aurkikuntzak** (5); **egindako aurkikuntzak** (6)
>
> **aurkikuntzaren aurrean** (3); **aurkikuntzaren berri eman** (5); **aurkikuntzaren gida hariaren** (3); **aurkikuntzaren jauregiko** (3); **dute aurkikuntzaren berri** (3); **guztien aurkikuntzaren gida** (4); **huts guztien aurkikuntzaren** (4); **nire aurkikuntzaren** (5); **zuen aurkikuntzaren berri** (3)
>
> **aurkikuntzari esker** (5)
>
> **aurkikuntzen berri** (4)

---

aurkileku *iz* topo egiteko tokia; aurkikuntza bat izan den tokia.

Isilik itzuli ginen hilotzaren **aurkilekura**. Aingeru Epaltza

Baina, baldin hizkuntza bakoitza arimatik arimarat hedatzen dugun zubia bada, noraino ote zen, halarik ere, Alessandro eta osaba Joanikotenganik eneganat hedatzen zen zubi hura hiruren arteko elkargune eta elkarbide, **aurkileku** eta bidegurutze, zeren nik nahi nuena ulertzen bainuen, finean? Joan Mari Irigoien

---

aurkintza *(orobat **aurkientza**) iz* lekua, espazioaren zati jakina. ik **paraje**; **alderdi**; **bazter**.

Hauxe da delako morbo horren erresuma naturala, naxka eta xikiñaren **aurkintza**. Iñaki Segurola

Aurkintza bikaina da; zerua urdin, itsasoa urdin, eguzkia distiratsu. Koldo Izagirre

Bertzenaz, gure **aurkientza** hartako anitz apez ez bezala, gizon jantzia zen... baina jantzi bakarrekoa. Joan Mari Irigoien

Eta handik bela egin zuen Itsas Gorriaren sarreraraino, non, Pertsiako Golkoan, Bab-en Giltza deritzon uharte koxkor baten **aurkintza** baitago India animalien **aurkientza** zoragarria duzu. Juan Garzia

---

aurkipen *iz* aurkikuntza.

Haren bular jainkozkotik harako bertsoak nonahi aldarrikatzen dira eta **aurkipen** bikainak azaltzen dituzte, giza endatik sortua dela nekez sinesteraino. Xabier Amuriza

---

aurkitegi *iz* izenak, helbideak eta kidekoak hurrenkera alfabetikoan jasotzen dituen zerrenda edo aurkibidea. ik **aurkibide**.

Telefono-**aurkitegiari** heldu zion laster batean Perrettek. Jon Muñoz

-Begira -esan nion, karpeta barrutik Bizkaiko telefono-**aurkitegia** ateraz-. Edorta Jimenez

New Yorkera itzuli nintzenean, deitzen saiatu nintzen, baina telefono **aurkitegian** ez ziren ageri ez Boris Merkin ez Esther Merkin; beste norbaiten etxean egongo ziren aita-alabak maizter. Koro Navarro

---

aurkitu, aurki(tu), aurkitzen **1** du *ad* bilatzen ez den zerbait ikusi edo aurrean gertatu. ik **topatu**.

Oharkabean **aurkitu** nuen gero guztiek zugan sumatzen zutena, bizitza bikoitza zeneramala. Eduardo Matauko

Gaztelaniaz idatzi nuen, baina alfabeto grekoz, amak **aurkitzen** baldin bazuen ere, uler ez zezan. Agurtzane Juanena

Zubietako erriberan **aurkitu** zuten mutil bat, ibai bazterreko mihimenen artean buruaren albo batetik bestera tiro zuloa eta biluzik, gorpua gogortu, puztu eta usteltzen hasia ordurako. Joseba Sarrionandia

Nik ene nahi baduzu fantoma gosea -bakoitzak bereak ditu ere- hor enpleatzen dut, gure egunorotako bizian eta **aurkitzen** ditugun problema horiekin. Menane Oxandabaratz

Hurrena, aste bete lehenago kalean **aurkitutako** idazmahai zahar bati gurpiltxoak kendu, eta bazterrera utzia genuen aulki bati josi nizkion. Jesus Mari Mendizabal

2 du *ad* bilatzen dena ikusi, non den jakin, lortu.

Ilunpean, elkarri eskutik, gerritik helduta, etzateko leku eroso bat **aurkitu** arte... Pako Aristi

Haren zantzuan zebilen, haren aztarna **aurkitzen** zuen nonahi, baina gainerakook atzendu samarra geneukan Vladimir, zertan uka. Koldo Izagirre

Gogoan ditut argazki horiek, baina tiraderetan ez ditut **aurkitu**. Josu Zabaleta

Eskuan duzularik, ostatura jo duzu, lagunak **aurkituko** dituzulakoan. Xabier Montoia

Ematen du ez dela idazle batek egin beharko lukeen galdera, baina nolabait ume bihurtu gara eta besteengan bilatzen dugu guregan **aurkitzen** ez dugun erantzuna. Edorta Jimenez

Antza, italiar etorkinak malenkoniatsu sentitzen ziren hiri-hirian, hainbeste porlan eta asfalto artean, eta igande goizetan, herriminak joak, trena hartzen zuten landak **aurkitzeko**, nostalgia arintzeko. Patxi Zubizarreta

Joxek minutu erdi bat baino ez du behar izan soro artean bide bat **aurkitzeko**. Pello Lizarralde

"Lasai, denon artean **aurkituko** dugu" esan zion taldeko begiraleak, baina ez zuten deus **aurkitu**. Xabier Mendiguren Elizegi

3 du *ad* (ezkutaturik zegoen edo ezagutzen ez zen zerbaiti dagokiolarik). ik **deskubritu**.

Belarritakoak, eraztunak eta horrelako beste pieza batzuk **aurkitu** ditugu hilobi batzuetan. Berria - Gaiak

322 Plimpton taulatxoa deitu zitzaion, **aurkitu** zuen ingeles arkeologoaren izenaren omenez. Jon Muñoz

Esperantzak sortu ziren, **aurkitu** zituztenean, brontzean, berunean, harrian eta diruetan egin idatzi horietan, euskal hitz batzu. Herria

Adibide bat jarriko dizut: orain dela bi urte, Ekialdeko Prusian, Ahnenerbeko arkeologoek antzinako arioen herrixka baten aztarnak **aurkitu** zituzten. Alberto Ladron Arana

4 du/da *ad* (zerbaiten edo norbaiten egoera jakin bati dagokiolarik).

Maldizioka jardun eta gero (pentsamenduaz), erabat norabiderik gabe **aurkitu** nuen neure burua, belztasun bete-betean. Joxean Sagaztizabal

-Urkatuta **aurkitu** dute ziegan! -entzun du Joxanek bere atzean, mutil batek ondokoari esana. Paddy Rekalde

Arratsaldean elkartu ginenean, zoriontasunez gainezka **aurkitu** nuen eta harritu egin nintzen; izan ere, ez genuen horretarako motiborik, soldata igoera atzeratzen ari zen eta gure ezkontza gero eta urrunago ikusten zen. Juan Martin Elexpuru

-Zure senarrak guztiz aldatua **aurkituko** zaitu. Juan Martin Elexpuru

Gero, Mateo zena eta Markos ebanjelariek diotenez, Jesusek pikondo ditxosozko hura, fruiturik gabe **aurkitu** zuenean, madarikatu egin omen zuen, eta hartatik ihartu arbola sakratua. Patziku Perurena

5 da *ad* toki batean izan, egon.

Lehen aldia du holako tenorean elizan **aurkitzen** dela. Michel Oronoz

Gure artean izan diren arestiko legeak, gai horiek direla eta, larregikoak dira, onura politikoa, morala adina, bi mutur horien artean **aurkitzen** baita. Andres Urrutia

Idazterakoan, anartean ez zeukan arazo baten aitzinean **aurkitzen** da.Bestak abiatzearekin batera, berehala gaitzeko lanetan **aurkituko** da gure irakurlea. Jose Angel Irigaray

Orain Erredorai bordaldean **aurkitzen** gara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bestalde, gaur asko mugitu beharrean **aurkitzen** gara. Pello Zabala

6 ***eskas aurkitu***

Moldatu ziren Mendebaldeko Zibilizazioa balantzan pisatzeko, **eskas aurkitu** zuten, kanpo uztea erabaki zuten eta behar hainbat indar bildu zuten alegiazko autarki politika hausnartu ahal izateko. Iñaki Mendiguren

Orain hiru urte **eskas aurkitu** nituen. Ander Irizar

7 ***sari bila joan eta neke berriak aurkitu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Beraz, **sari bila joan eta neke berriak aurkitu** zituen Wagnerrek bidaia hartan... ETC-prentsa

---

aurkitzaile **1** *iz* zerbait aurkitzen duen pertsona.

Baina, era berean, **aurkitzaileak** berarentzat gorde nahi izatea justifikatuko lukeen baliorik gabe ere, eskuizkribu bat ez da hortzetako eskuila erabili bat bezala botatzeko gauza. Ramon Saizarbitoria

2 *iz* aurkikuntza bat egiten duen pertsona.

Zer esan behar genieke haren **aurkitzaileei**? Pako Aristi

"Bertakotzat" izendatzean Mundu Berri zapaldu gabe bateko fauna eta flora ez-gizatiarrarekin parekatzen ari da zeharbidez, mundu hori giza **aurkitzaileen** zain egon delarik han sartu eta hartaz jabetzeko. Iñaki Mendiguren

Txinatarrak ere, Amerikaren **aurkitzaile**. Berria - Gaiak

---

aurkitze *iz aurkitu* aditzari dagokion ekintza. ik **aurkikuntza**; **aurkikunde**.

Udako ibai baten uren epelean igeri ibili eta abisurik gabe ur-laster sakon eta izoztu baten baitan **aurkitzea** bezalako zerbait. Alberto Ladron Arana

Esker onez, Gulanar Itsasokoak mirabe errukibera agure eskuzabalarekin esposatu zuen, baina Badr-en andregai egokia **aurkitzea** falta zen. Patxi Zubizarreta

Dena den, euskararen kolorearen kontu honetan, uste dut bakoitzaren lana dela pribilegiatua zertan izan den **aurkitzea**. Iñigo Aranbarri

Zaila da oreka-unea **aurkitzea**. Anjel Lertxundi

Galtzeak alabaina nonbaitetik harrapatzea ekartzen du, alorra huts eta zabal utziz **aurkitze** berrien onartzeko. Itxaro Borda

Gaur ere, kontua ez baita egia **aurkitzea**, nor bere egiatxoa gailentzea baizik. Joxerra Garzia

Ez da erraza euskal literaturaz mintzatzeko solaskideak **aurkitzea**. Juan Luis Zabala

-Pozten nau hemen konpainia **aurkitzeak** . Anton Garikano

Taupaka suma zitezkeen emakumearen sudur-hegalak: ez zen horren zaila haren zergatia **aurkitzea** . Joxan Elosegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aurkitze prozedura praktiko (3); **gramatiken aurkitze** (3)

---

aurora 1 *iz* eguzki irraden eraginez, zeruan hainbat koloretako argi zerrendak agertzea, lurburuetan gertatzen dena.

Ezin da egia izan, eta ez duzu egia denik sinetsiko, **aurora** boreala baizik ez delakoan. Joseba Sarrionandia

Horietaz gain, **aurora** borealei buruzko erakusketa bat jarriko du martxan; lehendabizi Gipuzkoako hainbat herritan, eta ondoren beste herrialdeetan. Berria - Kultura

Neguan, lau hilabetez, ez da eguzkirik ikusten zeruan, eta izarrez eta ilargiaz gain, iparreko argiak (**aurora** borealak) bakarrik dira argi-iturri. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 *aurora austral* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Aurora polarra (aurora polar boreala edota aurora polar australa ere bai) gauez zeruan agertzen den distira edo luminiszentzia itxurako fenomenoa da. [...] Ipar hemisferioan, "aurora boreal" izenaz ezagutzen dira; aldiz, hego hemisferioan, " **aurora austral** " bezala. ETC-entziklopedia

Eguzkiaren partikulek goi atmosferan talka egitean sortzen diren argiei deitzen zaie aurora boreala -edo, hobe esanda, poloetako aurora, Hego Polotik hurbilekoa **aurora australa** baita-. ETC-prentsa

Aurora australa ikusita lasai hilko dela erraten du. ETC-literatura, saiakera

Aurora polarra (hau da, aurora boreala eta **aurora australa**). ETC-entziklopedia

3 *aurora boreal* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Ipar hemisferioan, " **aurora boreal** " izenaz ezagutzen dira; aldiz, hego hemisferioan, "aurora austral" bezala. ETC-entziklopedia

Aurora polarra (hau da, **aurora boreala** eta aurora australa). ETC-entziklopedia

Hala, Ipar Poloan agitzen denari **aurora boreal** deritzo, eta Hego Polokoari, aldiz, aurora australa. ETC-prentsa

4 *aurora polar* *(corpusean ez dago; ETCn **110** agerraldi)*

Aurora polarra (aurora polar boreala edota aurora polar australa ere bai) gauez zeruan agertzen den distira edo luminiszentzia itxurako fenomenoa da. ETC-entziklopedia

Fenomeno atmosferikoak hainbat eratakoak izan daitezke: aire-fenomenoak (haizea), ur-fenomenoak (euria, elurra eta txingorra), argi-fenomenoak **aurora polarra** eta ortzadarra) eta fenomeno elektrikoak (oinaztua). ETC-prentsa

Eta naturarekin gozatzeko bidaiak eskaintzen dituzte: glaziarrak bisitatzeko eta **aurora polarrak** ikusteko, esaterako. ETC-prentsa

Arantzadi Elkarteko bost gazte Kanadara abiatu dira **aurora polarrak** aztertzera. ETC-prentsa

Astronomoek iragarri dutenez, gaur edota bihar **aurora polarrak** behatzeko aukera izango da -Aurora 2001 euskal espedizioa Kanadan da egunotan, aurorak begiztatzen-. ETC-prentsa

Hori zen Ipar Poloko eskimalek **aurora polarra** azaltzeko zuten modua. ETC-prentsa

Aurora polar edo ipar argiak zeruan azaltzen direnean, hainbat inuitek arbasoen espirituak ikusten dituzte dantzan. ETC-prentsa

---

aurpegi 1 *iz* giza buruaren aurreko aldea.

Denok gogoratzen ditugu eguraldi gizon-emakumeen **aurpegi** , irribarre nahiz imintzioak: etxeko egin zaizkigu gure profesional handiak, Andoni Aizpuru bezala Ana Urrutia. Pello Zabala

Andaluza nekazari arraza da, **aurpegiko** hazpegietan beretan ezagun du. Joxe Azurmendi

Ez zuen sekulan irriño batek haren **aurpegia** argitzen, baina bihotz haundikoa zen eta bazekien zerbitzu egiten. Michel Oronoz

Danielen **aurpegia** ikusten bazinute, zonbait aldiz, entzuleak, serios eta... Menane Oxandabaratz

Katakume bat eskuetan ageri zen, **aurpegiaren** parean. Joxan Elosegi

Une hartan, ezkongaiei **aurpegiko** kolorea aldatu zitzaien. Juan Kruz Igerabide

Luza itzazu besoak, ahurrak gora begira direla, tolestu ukondoak eta erakarri eskua **aurpegirantz** . Irene Aldasoro

Ume txikiek, **aurpegia** estali, eta desagertu egiten direla uste izaten dute. Joxerra Garzia

Hamasei urte izanen ditu gehienez eta bilorik ez **aurpegian** . Xabier Montoia

Baina haietako gehienek sabela handitua zuten, ikaragarria, eta **aurpegia** horituta eta malariak hartuta. Patxi Zubizarreta

Ikus gaitzazuen estali ditugu **aurpegiak** . Iñigo Aranbarri

2 *iz* aurpegiera.

Haren tximino- **aurpegiaren** alde bat erabat zimurtua eta okertua zegoen, eta txarolezko zapata arrakalatu baten puntaz zeraman konpasa. Lopez de Arana

Nik oso ondo dagoela esan diot, eta hala dago argazkian: emakume ederra, oso **aurpegi** noblearekin, adatsa indartsu, begirada urrun. Pako Aristi

Gelditu dira beraz korrikalariak, eta txintxo- **aurpegia** jarri ere bai erretolika entzuten duten bitartean. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehen puntua da pertsonak ikustea, batzuk eta besteak; eta lehenik lur gainekoak, hain desberdinak bai janzkeraz, bai **aurpegiz** . Patxi Altuna

Amak hanketako mina dueneko **aurpegia** zuen, eta nire arrebak betiko askojakin airea. Josu Zabaleta

Haren aldi zelarik eta atean agertzen zelarik, beste zaintzaleak baino **aurpegi** idekiagoa zuen, bederen ez zuen mutur egiten besteek bezala. Filipe Bidart

Atentzio fokua ez zegoen, ez niretzat behintzat, bandera harro erakusten zuten gazteengan, edo atzetik beldur **aurpegiaz** begiratzen zuten besteengan. Alberto Barandiaren

Harridura **aurpegia** nire adiskide horrek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Poeta- **aurpegia** jartzen ari da, zenbaitek musean poker **aurpegia** jartzen duen bezala, eta jarrera hori eskatzen dio irakurleari ere. Joxerra Garzia

Guk hizkuntzaz gain ez dezakegu gorde ez garela behar bezalako zuriak, gure **aurpegi** ilunek salatzen gaituzte. Aurelia Arkotxa

Susto- **aurpegia** zuen mausoleoko aingeruak. Unai Elorriaga

Ez da terapia txarra norbere desgrazien bizkar barre egiten jakitea; koadrilan maiz egiten dugu hori eta Miren, harritu **aurpegiz** begiratzen badigu ere, jarriko da gure umorera denboraren poderioz. Xabier Etxabe

3 *iz* hainbat gauzak agertzen dituen alde edo alderdietako bakoitza.

Hori da azpimarratu nahi duguna hemen, horrek ematen digulako isilean gorde nahi dugun mundu honen beste **aurpegi** bat. Pello Salaburu

Bestalde, edozein ikuspegi hautaturik ere, fenomeno linguistikoak, betiere elkarri egokituak agertuko diren bi **aurpegi** edo izari lotzen ditu. Isabel Arrigain

Pasteur Institutuko gure laborategian martxan zeuden bi ikerlan motak ez zirela, izatez, fenomeno beraren bi **aurpegi** baino, mekanismo beraren bi adierazpen. Juan Garzia

Egia da ere sozietateak bi **aurpegi** erakusten zizkidala, bata mugatzailea eta bestea libreagoa. Ana Urkiza

Jeloskortasunaren **aurpegi** mingotsena gaiztakeriarekin nahasten denean agertzen da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta metafora gisa uler bedi, zeren eta ikusiko dugunez maizenik bi alde baino hamaika alde edo **aurpegi** baititu ekonomiaren errealitateak, eta poliedro batean gertatzen den legez, baita elkarri kontrajarriak ere. Iñaki Heras

4 *iz* poliedro bat osatzen duten planoetako bakoitza.

Honelako perspektiba-sistema batean, kubo baten irudikapenean ez dira ikusten haren **aurpegien** barnealdeak, **aurpegi** horien kanpoko aldeak baizik. Josu Zabaleta

Tetraedroa: oinarri triangeluarreko piramidea, lau **aurpegiak** triangelu aldekide dituena; kuboa, sei **aurpegiak** karratuak dituena; oktaedroa, alegia, bi piramide berdin, haien

oinarri karratuetatik itsatsiak, zortzi **aurpegiak** triangelu aldekide dituela; dodekaedroa, hamabi **aurpegiak** pentagono erregular dituena; eta ikosaedroa, hogei **aurpegiak** triangelu aldekide dituena. Jon Muñoz

5 *iz* itxura.

Orduan jabetu nintzen ihardokitzen zuen Frantziaren **aurpegiaz**. Marzel Etxehandi

Azkenean, hortik ondorioztatzen den irudia zientziaren **aurpegi** gizatiarra dugu. Askoren artean

Nik deskribatu ditudan harremanek balio dute konfigurazio jakin bat definitzeko; hauek ez dira kultura baten **aurpegia** bere osotasunean deskribatuko duten zeinuak. Xabier Arregi

6 *aurpegi adierazpen* *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Aurpegi adierazpena pertsona edo animalia batek aurpegiz, zehazkiako begiak, ezpainak, sudurra, bekokia eta masailak erabiliz egiten dituen imintzio eta keinu bidezko adierazpen eta hitzik gabeko komunikazioa da. ETC-entziklopedia

Emozio baten **aurpegi adierazpena** sentitzen duenarekin bat ez egin ahal duela badaki. ETC-prentsa

Pertsonaia nagusiek txalogarri dihardute, indar eta erritmo handiz, arnasestuka, **aurpegi adierazpenei** eta gorputz higidurari oreka bikainean eutsiz. ETC-prentsa

30 zentimetrora, umeek ongi xamar bereizten dituzte **aurpegi-adierazpenak**, baina ez aurpegia bera. ETC-prentsa

Harreman sozialetan dute gabezia sindromea duten pertsonek: adibidez, hitzik gabeko komunikazioko jarreretan: "Ikusmenezko hizkeran, **aurpegi adierazpenean**, gorputz adierazpenean eta abar". ETC-prentsa

Elkar arteko begiradei esker nola doan haurra ikasten munduari arreta jartzen; zaintzailearen **aurpegi-adierazpenaren** bidez nola doan bereganatzen bai hizkuntzaren sinboloa bai bestearen aldarte emozionala ere. ETC-literatura, saiakera

Bekatu larriagoa da besteenganako mesprezua erakustea zeinu batzuen bitartez, hala nola, ekintza, hitz, **aurpegi-adierazpen**, barre-algara eta bestelako irainen bitartez. ETC-literatura, saiakera

Hala, gure komunikazioaren parte handi bat keinuka, buru-makurka edo **aurpegi-adierazpenekin** bideratzen genuen. ETC-literatura, saiakera

Zer egin argazkiekin: aztertu pertsonak pairatu dituen itxura-aldaketak (sudurra, begiak, ahoa, aurpegia, **aurpegi-adierazpena**, gorpuzkera, postura eta abar). ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikusmen kontaktuan, **aurpegi-adierazpenetan**, gorputz-jarreren eta keinuen bidez komunikatzeko arazoak dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *aurpegi-babes*

Eskriman erabili ohi diren **aurpegi-babesen** antzeko sare zurrun gisako bat, baina aurpegiari estu itsatsia; aurpegiaren molde moduko bat, eta haren gainean lerroak, elkarrekin gurutzatzen ziren lerroak: puntuak. Imanol Zurutuza

8 *aurpegi biko*

Palindromo bat **aurpegi biko** hitza da, baina berezitasun batekin: ezkerretik eskuinera zein eskuinetik ezkerrera, hitz bera irakurtzen dugu. Iñaki Arranz

Washingtonek zein Londresek esan dute oraindik zenbait arlo **aurpegi bikoak** direla haren planean. Berria - Mundua

Aurpegi biko izarra. Berria - Kultura

9 *aurpegi bikoitz*

Bere jardutea determinatuz soilik bihurtzen baitu ageriko jardute hori berori ahalbidetzen duen eremu horrekiko mantentzen duen erlazioa: determinazio ontologikoa erabaki etikoaren korrelatua da eta bien artean errealitate beraren **aurpegi bikoitza** eratzen dute. Piarres Xarriton

Gazteek gogor deitoratu zituzten Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailak iaz atxilotuen eskubideak babesteko indarrean jarri zituen neurriak: "Min handia ematen digu, Eusko Jaurlaritzak torturaren aurrean agertzen duen **aurpegi bikoitzak**. Berria - Euskal Herria

10 *aurpegi eman*

Aurpegi emango diot hilazti eta igarleengana jotzen duenari ere eta bota egingo dut herritik, idolatriaren pareko baita jokaera hori. Elizen arteko biblia

Ezetz ausartu azpiko amildegi beltzari **aurpegi ematen**. Iñaki Iñurrieta

Eta badaezpada ere, pistola eskuetan izateak balizko edozein perili **aurpegi emateko** gertu ginela erakutsi gura zuen. Edorta Jimenez

Errepresioa trantsizio deitutakoaren moldeak beretzen ari zen neurrian, herri-borrokak ere asmatu egin nahi zuen nola **aurpegi eman**, aurrekoaren oinordeko zuzena izan arren legitimotasun handiagoa lortzeko bidean zen erregimen berriari. Jokin Urain

Mapa mundiaren tiraniari **aurpegi eman** guran bai, baina... hain urruti. Jokin Urain

Baina, batez ere: argiari **aurpegi ematea**, eta pozari (gure alabak bezala, kantari), jakinaren gainean iraungitzen ari naizela, baina argitan, isastia, asfaltoa eta itsasoa lekuko, **aurpegi emanez** denborari, edota unean uneko Betierekotasunari. Joxe Austin Arrieta

Eta egia da aldi hartan ez niola aholkurik eskatu Norma Lúciari, laguntzarik gabe **aurpegi emango** niola erabaki nuen, bakarkako hegaldian. Karlos Zabala

Haien aurka ari nintzen nire kosakoekin, baina maltzurrak ziren etsaiak; ez ziguten **aurpegi ematen** sekula. Felipe Juaristi

Nik, nire aldetik, nire jarrera hotz eta isilean jarraituko dut, eta etorkizunean ere ez diot beldurrik izango egiari, zeren zenbat eta egia gehiago atzeratu, orduan eta zailago izaten baita hari **aurpegi ematea**. Josu Zabaleta

Euren eskolak, osasun eta gizarte eraketarako sistemak, zergak biltzeko egitura eta instituzio politikoak eratu zituzten, Serbiaren jokabide zapaltzaileari **aurpegi emanda**. Berria - Mundua

Eta inbasoreari, etsaiari armak hartuta **aurpegi ematen** dionaren bidea, guztiaren gainetik, herio dramak hegan degiela. Berria - Kultura

Aurpegi eman zion herriak Moisesi, esanaz. Jose Antonio Mujika

Kritika jasa haren aurrean harriturik, letrei **aurpegi eman** eta esan nien. Bernardo Atxaga

Jasaten den arriskua neurtu behar du, eta azaldu zergatik, eritasunaren larriaren aurrean eta beste terapia baten faltan, merezi duen arrisku horri **aurpegi ematea**. Juan Garzia

11 *aurpegi ezagutza* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Hatz markak, begietako irisa, ahotsa edota idazkera bera erabiltzen dira horretarako: baina, dudarik gabe, **aurpegi ezagutzak** eskuratu du arrakasta eta hedapen handiena. ETC-prentsa

Wired aldizkariko erredaktoreburuak iradoki du #10yearchallenge bezalako meme bat, Facebook edo Instagramen, oso erabilgarria gertatzen ahal zaiela (eta horregatik akaso abiarazi dutela) **aurpegi-ezagutzaren** eta zahartzearen algoritmoak trebatu ahal izateko, oraingoen ahuleziak zuzenduz. ETC-prentsa

Maitasunaz gehiago erakutsi dit **aurpegi-ezagutzaren** goi-teknologia poliziala jendarteratzen duten argazki pare batek John Donneren poema batek baino. ETC-prentsa

Baina alderantziz, eremu bakoitzean oso espezifikoak diren ikaskuntza-estrategiak bakarrik erabili ahal izateko heineraino txikitzen baldin badira eremuak (hala nola, "**aurpegi ezagutza**", "gramatika ikaskuntza"), orduan eboluzioak gu abilezia horiez guztiez dohatu izana benetako mirakulu bat da. ETC-literatura, saiakera

12 *aurpegi-gorritu*

Neskak elkarrekin bildurik zeuden denak, besteengandik berezi antzean, aurpegi **gorriturik,** eta lotsak isilduta. Josu Zabaleta

13 *aurpegi hezur* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Aurpegi hezurra edo esplaknokranioa hiru lehen arku biszeraletatik garatzen den garezur-zatia da; barailak eusten dituen egitura eratzen du. ETC-entziklopedia

Esparruko silueta eta **aurpegi hezur** hutseko haiek berdinak ziren beti. ETC-literatura, saiakera

14 *aurpegi-ilun* *izond*

Tsarraren jauregiko goi kargudun aurpegi- **ilun** baten itxura ematen zion. Matías Múgica

Zergatik zaudete hain aurpegi- **ilun**? Elizen arteko biblia

15 *aurpegi molde* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Hura digitalizatu eta **aurpegi molde** horrekin hamabi kandela egin zituen Bregañak. ETC-prentsa

Esan gabe geratu ziren hitzek hutsune bat eratzen dute gizaki isilduaren inguruko giroan; berak kontatu ez zuena isiltasunezko **aurpegi-molde** batean gogortzen da; molde horrek, begitarteari itsatsita egon ondoren, eta begitartetik desitsasten denean, jazarriari behin betiko aurpegia uzten dio. ETC-literatura, saiakera

16 *aurpegi motzeko hartz* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Aurpegi motzeko hartza. ETC-prentsa

Aurpegi motzeko hartza ("Arctodus simus") Amerikan Pleistozenon bizi eta duela 12.500 urte inguru iraungi zen hartz-espeziea izan zen. ETC-entziklopedia

17 *aurpegi nerbio* *(corpusean ez dago; ETCn **71** agerraldi)*

Aurpegi nerbioa nerbio kranial misto bat da, zuntz motor eta sentsitiboz osatua. ETC-entziklopedia

Alderdi honen osagai kranialaren gongoil aurreko zuntzak NSZtik irteten dira nerbio okulomotorrean, **aurpegi-nerbioan**, nerbio glosofaringeoan eta nerbio bagoan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adibidez, Geniculum nervi facialis izena hartzen du **aurpegi-nerbioak** loki-hezur barruan bat-batean norabidez aldatzen duen guneak. ETC-zientzia, zuzenbidea

35 Pasabide hauetatik igarotzen dira **aurpegi-nerbioari** eta glosofaringe nerbioari erantsitako parasinpatiko sistemako nerbio homonimoak (Nervus petrossus major/minor). ETC-zientzia, zuzenbidea

18 *aurpegi nerbioaren nukleo* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Aurpegi nerbioaren nukleoa da, VII. Nerbio kranial gara nerbioaren nukleoa ere deitua. ETC-entziklopedia

Aurpegi nerbioaren atal motorra zubian kokatutako **aurpegi nerbioaren nukleotik** irteten da, atal parasinpatikoa ordea nerbio bitartekaritik dator. ETC-entziklopedia

19 *aurpegia ala gurutzea*

Aurpegia ala gurutzea? Lopez de Arana

20 *aurpegia atera* aurpegia eman, norbaiten alde egin.

Ez dakit txantxetan esan zuen, baina nik **aurpegia atera** nien, berriro ere, argudio asko ez nuen arren. Ramon Saizarbitoria

Sanz jaunak ez du galtzen denborarik enpresari **aurpegia ateratzeko**, eta sindikatuekin eta langileekin sartzeko. Berria - Euskal Herria

Amari **aurpegia ateratzen** niola eta puntu hartan atzera egiteko asmorik ez nuela ikusita, sutu egin zitzaidan Sara. Joan Mari Irigoien

Baina behin da berriz ta azpikeriaz hori sinets arazi nahi dutela ikusirik, egiaren alde **aurpegia ateratzera** behartua nago. Koldo Zuazo

21 *aurpegia eduki*

Eta gainera, zer eta Morfeo santu hori asmatzeko **aurpegia daukan**, gu denak kezkatuta edukitzeko! Antton Olano

22 *aurpegia eman*

Pixkanaka, begiak erdi irekiz, **aurpegia ematen** diot zuritasunak babesten duen orrialde orbangabeari, lanpararen klartasun mortuaren azpian. Iñaki Iñurrieta

Doluak errealitateari **aurpegia ematen** dio. Joseba Zulaika

Neskatoa Egutxiri **aurpegia emanez** zegoen lo. Ibon Uribarri

Belauniko jarri ninduan jauzi batez lamiaren hanken artean eta orduan ikusi nian azpitxoko hartan ez zegoela alu bat bakarrik: sudurra eta bi begi ere bazeudean eta, sabeleko ileekin batera, neska bitxi baten **aurpegia ematen** zian hankarte hark! Aitor Arana

Dopinaren mamuak etengabe astindu du, beti dago susmopean zenbaitentzat, baina beti **aurpegia eman** du. Berria - Kirola

Eta hori hemen gelditu eta **aurpegia emanez** baino ezin da egin». Berria - Euskal Herria

"Noski, orain ez da **aurpegia ematera** ausartuko txerri hori", pentsatu du Sofiak. Patxi Iturritegi

Baliteke laster guk ere heriotzari **aurpegia eman** behar izatea. Joanes Urkixo

Inor saldu gabe, **aurpegia eman** gabe, errugabe bat espetxetik ateratzen lagun diezadakezu. Migel Angel Mintegi

Horiek guztiak mugitu zirelako, **aurpegia eman**, pisua erakutsi, babesa, horregatik nagok ni hemen. Pako Aristi

Haizearekin batera ibiltzen zen eta beti haizeari **aurpegia ematen** zion, hain zuzen ere, bere makila horrekin mementoan jotzen ari zen haizearen irudia markatzen zuelarik beti. Santiago Iruretagoiena

Gainera, iruditu zitzaidan salmenta batekin irabaziko nuen komisio xumearen truke ez niola Benito zenaren hezurrak desagertzearen erantzukizunari **aurpegia eman** gabe libratzen utziko. Ramon Saizarbitoria

Gutariko zenbait burugabek ilargiari **aurpegia emanez** lo egin zuen; sukarrak irazeki zituen; zisternetako ur gaizkoatuan bertze batzuek eromena eta heriotza edan zuten. Juan Garzia

Beraz, **aurpegia eman** beste erremediorik ez zegoen! Karlos Linazasoro

23 *aurpegia hautsi* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Beste batean, nire zuzendari Erik Dekkerrek **aurpegia hautsi** zuen Tourreko etapa batean. ETC-prentsa

Seguru senidea **aurpegia hausteko** prest egongo dela, manager ezezagun bat baino lehenago. ETC-prentsa

24 *aurpegia izan*

Jarraipenak hasia egon behar luke! Begiak eta **aurpegia duten** 700 familia dira Berria - Ekonomia

Minak **aurpegia du** Berria - Kultura

Nolabait esateko, haurra abstraktua den bezala, mutila edo neska dela konkretua eta zehatza, bi begi eta **aurpegia dituela**, eta gorputz oso bat ere bai, zangoak eta besoak. Hasier Etxeberria

Hemen **aurpegia du**: umea izutua dago. Iñigo Aranbarri

-Zuek, lapur, bihozgabe eta giza hiltzaileok, ez duzue lotsarik inoren nekeen fruituak lapurtzeko; eta **aurpegia duzue** gainera, lotsagabeok, Jainkoaren zerbitzariei emandako limosnak jan nahi izateko. Askoren artean

25 *aurpegian eman*

Eguzkiak **aurpegian ematen** dinala lo egitea baino sentsazio hoberik ez zegon. Anton Garikano

Pont-Audemerren obus baten pusketek **aurpegian eman** zioten eta irekita zegoen farmazia bakarrera joan zen osa zezaten. Joseba Urteaga

Emakumeak ez zuen ezer esan, bere hartan jarraitu baizik, kopetilun samar begira, Maizaren ustean atez **aurpegian emateko** zorian. Migel Angel Mintegi

EAEko Herrizaingo Sailaren arabera, emakumeari kolpeak buruan eta **aurpegian eman** zizkion. Berria - Euskal Herria

Belaunarekin **aurpegian eman** zion Andosillakoari. Berria - Kirola

26 *aurpegian eseri*

Eskuak mokorretan jarri nizkion, eta hura, aldez aurretik planeatu izan bagenu bezala, **aurpegian eseri** zitzaidan, bai sentsazio paregabea, deusek ere ezin du ordezkatu! Zein leuna zen, zein abegikorra, zein gozoak haren usainak! Karlos Zabala

27 *aurpegiko biko hitz* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aurpegiko biko hitza edo erretrogradoa ezkerretik eskuinera eta eskuinetik ezkerrera irakur daitekeen hitza da. Horretan, palindromoa bezalakoa da; baina, palindromoetan ez bezala, zentzu batean irakurri ala bestean irakurri, hitz ezberdin bat irakurriko dugu. ETC-entziklopedia

28 *aurpegiko hezur*

Ezko-itxurako larruazala hain tenkaturik zeukan **aurpegiko hezurren** gainean, ezen burezurra ematen baitzuen haren aurpegiak. Iñaki Mendiguren

Aspeko ordezkariek atzo adierazi zutenez, Ladis Galarzaren bizia ez dago arriskuan, baina erorikoak haustura larriak eragin dizkio **aurpegiko hezurretan**. Berria - Kirola

Aurpegiko hezurrek lau zokogune pare dituzte (sinuak), barrutik mukosaz estaliak. Irene Aldasoro

Aurpegiko hezurrak irtenak zituen, masail hezurretik kokotseraino luzatzen zutela; horrexek aldatzen zion agian itxura ezin ezagutu izateraino. Josu Zabaleta

29 *aurpegiko nerbio* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Kornea kotoiarekin ukitzen da, eta pertzepzioaren eta erantzun erreflexuaren intentsitatea balioztatzen da (**aurpegiko nerbioak** eragiten duen betazalaren itxiera). ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurpegiko nerbioak ere mingaineko dastamen sentsazioak bidaltzen ditu. ETC-entziklopedia

Hemendik **aurpegiko nerbioa** edo VII. garezur-parea irteten da. ETC-entziklopedia

Gainera, **aurpegiko nerbioak** (Burezurreko VII. nerbio parea) azaleko lobulua sakonekotik banatzen du. ETC-entziklopedia

30 *aurpegiko paralisi* *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Aurpegiko paralisi periferikoa aurpegiko muskulaturaren ahultasunak eragiten duen sindromea da. ETC-entziklopedia

1994an, Murugarreni eztarriko noduluetan ebakuntza egin behar izan zioten, eta Luis Alberto Etxenagusiak **aurpegiko paralisia** izan zuen. ETC-entziklopedia

Txikia, morroskoa, lehorra, ilea arrasetik moztua, **aurpegiko paralisi** gutxiasko neurtua, jeneral arketipo biribila hezurmamitzen du, Erich von Stroheim-ek beste inork hezurmamitzen asmatu ez duen bezala. ETC-literatura, saiakera

Garzon gaixoaldian dago, joan den azaroaren 24an **aurpegiko paralisi** bat jasan zuenez geroztik. ETC-prentsa

Jaiotzetiko gaixotasuna da, eta harekin jaiotzen direnek **aurpegiko paralisia** izaten dute; ondorioz, ezin izaten dute emoziorik adierazi, nahiz gainerakoen moduan pentsatzen duten. ETC-prentsa

Aurpegiko muskuluak mugitzen dituen nerbio bat ere blokea daiteke, eta horrek aldi baterako **aurpegiko paralisia** eragin dezake. ETC-prentsa

Tratamendua jaso ezean, nerbio-sistema zentrala infektatzen duten B. burgdorferi zelulak sor gera daitezke denbora luzez, beste hainbat sintoma kroniko eragin aurretik (ikusmen asaldua, **aurpegiko paralisiak** eta apoplexiak). ETC-zientzia, zuzenbidea

William Shakespeare, bizarrik gabe, han agertzen da, **aurpegiko paralisiak** jota zurrun, atalondoko kapela-esekitokiko oreinaren adarren islaz koroatua. ETC-literatura, saiakera

31 *aurpegiko paralisi periferiko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Aurpegiko paralisi periferikoa aurpegiko muskulaturaren ahultasunak eragiten duen sindromea da. ETC-entziklopedia

32 *aurpegira bota* erantzuki egin. ik **aurpegiratu**.

Gertatua jakitean, Makabearrak bildu zituen gudarosteko buruzagiak eta **aurpegira bota** zien errudunei, etsaiei ihes egiten utziz, beren senideak diruarengatik saldu izana. Elizen arteko biblia

Agian, **aurpegira botako** digute ez dugula hitz egin puntu honetan aldaezintasunari buruz hitz egin dugunean bezain garbi. Isabel Arrigain

Egia esateko, gutxitan ikusi nituen errietan hasi eta, txinpartak harturik, sekulakoak esaten elkarri, baina halakoetan, barrenean zeukaten pozoi guztia elkarri **aurpegira bota** eta gero, mututu egiten ziren. Anjel Lertxundi

33 *aurpegira egotzi*

Egun batez, nazkak eraginik, senarrari **aurpegira egotzi** zion handik aurrera ez zuela berarekin sexu harremanik izango. Gotzon Garate

34 *aurpegira eman* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Eta hau **aurpegira ematen** diezularik, dena da aitzakia zuri eta jario merke: "Afrikako gosearen kontra nago!" diotsuten kara berberaz diotsute "euskara ere Espainiako hizkuntza da". ETC-prentsa

Aurpegira ematen digutenean, baina, batzuetan komeni da kolpea jaso eta kolpeak berak egin duen soinua ere entzutea. ETC-prentsa

Berbarik egiteke egin zuen hatz gorpu bietara, zeinu honekin **aurpegira ematen** ziela mesfidatu izana. ETC-literatura, saiakera

Batzuetan, arrenka eskatzen zion alabari barka ziezaiola gozakaizkeria, baina, hainbat sarriagotan, **aurpegira ematen** zizkion bere anai-arreben heriotzak. ETC-literatura, saiakera

Misoginoek **aurpegira eman** ohi diete nortasun sendoko emakumeei "utziak" izaten direla; baina hau ere errepikatzen diete: gure berdinak izan nahi baduzue, utzi aurpegia eta azazkalak margotzeari. ETC-literatura, saiakera

35 *aurpegira esan* aurrez aurre esan.

Argi eta garbi esango dizut, eta **aurpegira esango** nioke berari ere, gizatxar hutsa dela, gizatxarra, gizatxarra, gizatxarra... Jose Morales

Horrela, gutun bidez esatea koldarra izango da, baina ez naiz ausartzen hara joan eta **aurpegira esatera**. Lander Garro

Aurpegira esan diot hori bera andreari. Josu Zabaleta

36 *aurpegiz aurpegi* *adlag* aurrez aurre.

Florent lotsatia zen; hogeita hamar urterekin, ez zen ausartzen emakumeei **aurpegiz aurpegi** begiratzen, eta gazte haren begitartea oroimenean zein bihotzean eramango zuen itsatsita, bizi zen artean. Karlos Zabala

Gero Salbatzaileari **aurpegiz aurpegi** begiratzeko jaiki zenean, Kristok bere esku txit santuak zabaldu eta muin emateko eskaini zizkion. Askoren artean

Begiak itxi ditut kontrola galtzear nagoelako, orduan gelditu egin da, utzi egin dio xurgatzeari, begiak zabaldu ditut eta aurre-aurrean dut, **aurpegiz aurpegi**, eta, eskuetan bakarrik apoiatuz, hondoratu egin dit. Juan Martin Elexpuru

37 *aurpegiz ezagutu* norbait hainbatetan ikusi delako ezagutu, nahiz eta harekin hitz egiterik inoiz egokitu ez.

Horregatik, Frantziskok berak hala aldentzen zituen begiak honelako huskeriak ikustetik, ezen, behin bere lagunari esan zionez, ez baitzuen ia emakumerik **aurpegiz ezagutzen**. Askoren artean

Haien artean adin ertaineko emakume bat zegoen, Egutxik **aurpegiz ezagutzen** zuena, eta agurtu egin zuen. Ibon Uribarri

Aurpegiz ezagutzen nituen mutil batzuk ikusi nituen Adlerhausera eraman behar gintuen trenaren lehendabiziko bagoian sartzen. Anjel Lertxundi

Bazuen Araujo enpresaren eta amaren pentsioaren berri, baina ez zuen jabea **aurpegiz ezagutzen**, amak askotan aipatu arren Araujo jauna. Bego Montorio

38 *bi aurpegiko*

Debrua ere ikusia omen zuen, batean aker baten itxuran, bestean **bi aurpegiko** gizon batena hartzen zuela! Eta sorginak debruari tirahala musuka artzen omen! Herria

Bi aurpegiko gizona. Iñaki Mendiguren

Argi geratu duk **bi aurpegiko** gizona haizela! Jose Morales

Berezko izaeragatik, etengabe ezkutaketa zein gezurrezko eta **bi aurpegiko** mundua sortzen du; eta hori gizartean islatzen da. Berria - Mundua

Globalizazioa **bi aurpegiko** prozesua da. Berria - Gaiak

39 *poker aurpegi*

Medikuari zera esaten nion **poker**-aurpegiaz, materiala biltzen laguntzera noa. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

amaren aurpegi (6)

aurpegi alaia (12); **aurpegi alaiz** (11); **aurpegi argia** (15); **aurpegi asko** (9); **aurpegi atsegina** (7); **aurpegi aurrean** (16); **aurpegi batekin** (7); **aurpegi baten** (6); **aurpegi beltz** (8); **aurpegi beltzarana** (7); **aurpegi bera** (7); **aurpegi berri** (20); **aurpegi berria** (7); **aurpegi berriak** (18); **aurpegi biko** (7); **aurpegi biribila** (10); **aurpegi ditu** (13); **aurpegi eder** (13); **aurpegi ederra** (16); **aurpegi eman** (27); **aurpegi emango** (8); **aurpegi emateko** (6); **aurpegi ematen** (7); **aurpegi erdia** (10); **aurpegi ezagun** (20); **aurpegi ezaguna** (13); **aurpegi ezagunak** (16); **aurpegi gainean** (6); **aurpegi gazte** (6); **aurpegi gaztea** (7); **aurpegi gorri** (9); **aurpegi gorria** (6); **aurpegi gorrixka** (7); **aurpegi guztia** (7); **aurpegi guztiak** (18); **aurpegi haiek** (8); **aurpegi handi** (10); **aurpegi harekin** (6); **aurpegi hartan** (11); **aurpegi hori** (40); **aurpegi horiek** (9); **aurpegi horrekin** (7); **aurpegi hura** (34); **aurpegi ilun** (13); **aurpegi iluna** (11); **aurpegi irribarretsua** (7); **aurpegi luze** (13); **aurpegi ona** (11); **aurpegi osoa** (22); **aurpegi polita** (11); **aurpegi serioa** (7); **aurpegi txarra** (11); **aurpegi txiki** (6); **aurpegi zabal** (10); **aurpegi zabala** (12); **aurpegi zorrotz** (9); **aurpegi zorrotza** (6); **aurpegi zurbil** (15); **aurpegi zurbila** (25); **aurpegi zurbilak** (10); **aurpegi zuri** (8); **aurpegi zuria** (12); **aurpegiz aurpegi** (7)

baina aurpegi (16); **baino aurpegi** (11); **batean aurpegi** (7); **baten aurpegi** (13); **bere aurpegi** (82); **beren aurpegi** (8); **beste aurpegi bat** (14); **beti aurpegi** (6); **bezalako aurpegi** (6); **bi aurpegi** (34); **duen aurpegi** (6); **emakume aurpegi** (9); **ere aurpegi** (6); **ez jarri aurpegi** (7); **ez zuen aurpegi** (7); **gabeko aurpegi** (9); **gizon aurpegi** (7); **haien aurpegi** (18); **hainbat aurpegi** (8); **hamaika aurpegi** (10); **hiru aurpegi** (7); **koloreko aurpegi** (6); **milaka aurpegi** (6); **nire aurpegi** (21); **oso aurpegi** (17); **zein aurpegi erakutsiko** (6); **zen aurpegi** (16); **zer aurpegi jarri** (7); **zion aurpegi** (12); **ziren aurpegi** (8); **zituen aurpegi** (8); **zitzaion aurpegi** (9); **zure aurpegi** (9)

aitaren aurpegia (6); **amaren aurpegia** (9); **andrearen aurpegia** (6)

aurpegia agerian (11); **aurpegia agertu zen** (6); **aurpegia agertzen** (6); **aurpegia aldatu zitzaion** (8); **aurpegia aldatzen** (8); **aurpegia alde** (6); **aurpegia amorruz** (7); **aurpegia argitu** (13); **aurpegia argitzen** (12); **aurpegia aztertu** (8); **aurpegia behar da** (6); **aurpegia bere** (14); **aurpegia beste** (6); **aurpegia bizirik** (6); **aurpegia busti** (6); **aurpegia da** (7); **aurpegia daukan** (6); **aurpegia desitxuratu** (7); **aurpegia desitxuratua** (7); **aurpegia distiratsu** (9); **aurpegia du** (11); **aurpegia duen** (9); **aurpegia eman** (21); **aurpegia ematen** (11); **aurpegia erabat** (10); **aurpegia erakusteko** (6); **aurpegia erakusten** (8); **aurpegia erakutsi** (15); **aurpegia ere** (29); **aurpegia esku artean** (10); **aurpegia eskuen artean** (6); **aurpegia eskuez** (7); **aurpegia estali zuen** (12); **aurpegia estalita** (10); **aurpegia estaliz** (6); **aurpegia estaltzen zion** (6); **aurpegia eta eskuak** (9); **aurpegia ez zen** (8); **aurpegia ezaguna** (8); **aurpegia ezagutu** (6); **aurpegia ezin** (6); **aurpegia ezkutatu** (13); **aurpegia garbitzeko** (12);

aurpegia garbitzen (9); **aurpegia gorderik** (6); **aurpegia gorri gorri** (21); **aurpegia gorritua** (7); **aurpegia gorrituta** (8); **aurpegia guztiz** (8); **aurpegia hartu** (8); **aurpegia hurbildu** (6); **aurpegia igurtzi** (8); **aurpegia ikusi zuen** (7); **aurpegia ikusita** (20); **aurpegia ikustea** (6); **aurpegia ikustean** (10); **aurpegia ikusteko** (15); **aurpegia ikusten** (21); **aurpegia ilundu** (7); **aurpegia ipini** (7); **aurpegia izan** (8); **aurpegia jarri zuen** (36); **aurpegia jarriko** (6); **aurpegia jarrita** (8); **aurpegia jarriz** (12); **aurpegia jartzen zuen** (9); **aurpegia jaso** (7); **aurpegia laztantzen** (9); **aurpegia lehortu** (7); **aurpegia lotsaz** (7); **aurpegia nire** (12); **aurpegia nola** (7); **aurpegia odoletan** (11); **aurpegia oso** (10); **aurpegia serio** (6); **aurpegia ukitu** (7); **aurpegia ur** (6); **aurpegia zapi** (7); **aurpegia zeharo** (8); **aurpegia zen** (7); **aurpegia zerurantz** (8); **aurpegia zeukan** (13); **aurpegia zimurtu** (8); **aurpegia zuen** (29); **aurpegia zurbil zurbil** (6); **aurpegia zuri zuri** (6)

baina aurpegia (15); **batean aurpegia** (7); **batek aurpegia** (7); **batez aurpegia** (9); **benetako aurpegia** (12); **bere aurpegia** (100); **beste aurpegia** (11); **bezalako aurpegia** (6); **diet aurpegia** (6); **dio aurpegia** (6); **du aurpegia** (21); **duen aurpegia** (8); **duenaren aurpegia** (9); **dut aurpegia** (6); **egin zitzaion aurpegia** (6); **emakume baten aurpegia** (6); **emakumearen aurpegia** (7); **ene aurpegia** (7); **estali zuen aurpegia** (7); **ez zuen aurpegia** (6); **giza aurpegia** (8); **gizonaren aurpegia** (7); **haren aurpegia ikusi** (10); **harridura aurpegia jarri** (8); **nazka aurpegia** (9); **neke aurpegia** (9); **neskaren aurpegia** (8); **neure aurpegia** (7); **nion aurpegia** (9); **nire aurpegia** (46); **nolako aurpegia** (11); **nuen aurpegia** (10); **pertsona baten aurpegia** (8); **tonto aurpegia** (10); **ume aurpegia** (9); **zaio aurpegia** (8); **zen aurpegia** (6); **zeukan aurpegia** (13); **zeure aurpegia** (12); **zidan aurpegia** (10); **zion aurpegia** (24); **zioten aurpegia** (7); **zuen haren aurpegia** (6); **zure aurpegia** (33)

aurpegiak ere (9); **aurpegiak estalita** (8); **aurpegiak ez zuen** (8); **bere aurpegiak** (17); **bi aurpegiak** (12); **elkarren aurpegiak** (6); **euskal herriko aurpegiak** (8); **haien aurpegiak** (18); **haren aurpegiak** (43); **nire aurpegiak** (15)

aurpegian behera (24); **aurpegian ere** (6); **aurpegian ez zen** (13); **aurpegian ikusten** (6); **aurpegian irribarre** (14); **aurpegian jo** (20); **aurpegian jotzen** (11); **bere aurpegian** (28); **du aurpegian** (9); **haien aurpegian** (8); **haren aurpegian** (31); **irribarre zabala aurpegian** (6); **nire aurpegian** (19); **zaio aurpegian** (8); **zidan aurpegian** (9); **zion aurpegian** (13); **zituen aurpegian** (8); **zitzaion aurpegian** (20); **zuela aurpegian** (6); **zuen aurpegian** (22)

aurpegiaren alde (8); **aurpegiaren aurrean** (7); **aurpegiaren erdia** (6); **aurpegiaren erdian** (7); **aurpegiaren gainean** (12); **aurpegiaren kontra** (9); **bere aurpegiaren aurretik** (6); **haren aurpegiaren** (16); **nire aurpegiaren** (17); **zuen aurpegiaren** (7)

aurpegiari begira (11); **aurpegiari begiratu** (11); **aurpegiari erreparatu** (7); **aurpegiari so** (6); **bere aurpegiari** (18); **haren aurpegiari** (9)

aurpegietako bat (6)

aurpegietan ere (6); **haien aurpegietan** (10)

aurpegira barre (8); **aurpegira begira** (14); **aurpegira begiratu ere** (9); **aurpegira begiratu gabe** (7); **aurpegira begiratu nion** (6); **aurpegira begiratu zion** (13); **aurpegira begiratzeko** (13); **aurpegira begiratzen** (21); **aurpegira botatzen** (15); **bota zion aurpegira** (7); **elkarri aurpegira** (7); **eskuak aurpegira eraman** (6); **haren aurpegira** (7); **nion aurpegira** (6); **zidan aurpegira** (6); **zitzaion aurpegira** (7)

aurpegirik ez (7); **aurpegirik gabeko** (6); **aurpegirik ikusi** (12); **bere aurpegirik** (9)

aurpegitik kendu (8); **nire aurpegitik** (8)

aurpegiz aurpegi (7); **aurpegiz begiratu** (6); **aurpegiz ezagutzen** (6)

---

aurpegialde *iz* aurpegi eremua.

Horregatik agertzen ziren multzo formagabe baten modura, **aurpegialdeak** lausoturik, erabat bukatu ez den akuarela bat bezala Berria - Kultura

11 Abakoaren zabalera neurri hauen arabera egingo da: kapitelaren altuera zenbatekoa den, neurri hori halako bi izango da abakoaren diagonalaren neurria, angelutik angelura; era horretan, **aurpegialdeak** beti zabalera egokia izango du alde guztietarantz. Santiago Iruretagoiena

---

aurpegiera *iz* begitartea. ik **aurpegi 2**.

Azken hitzak ahotsa zolituz esan zituen, eta **aurpegierara** zabaldu zuen bere garraztasuna. Patxi Zubizarreta

Aurpegiera, gisakotasuna eta manerak, ordea, lehengo berak zituen. Jose Morales

Kontua da gazte taldekoen **aurpegierak** aldatuz joan direla azalpenak jaso ahala. Jon Arretxe

Maltzurkeria gaizki ezkontzen zenez hazpegi onbera haiekin, aski bitxia izan zen nire adiskidearen **aurpegiera**. Alberto Ladron Arana

Egunkaria irakurtzen duenean ere horrelako **aurpegiera** jartzen du. Jokin Muñoz

Lucasek irribarre abegikorra eskaini zion eta neskak, estatua-aingeruaren **aurpegiera** berberaz, antzeko irribarrea saiatu zuen, diplomatikoen errezepzio batean baleude bezala. Unai Elorriaga

Maialeni begiratu zion, **aurpegiera** aldatu gabe, eta burua makurtu zuen, madame esanez bezala. Lander Garro

Aurpegiera serioak, irribarretsuak, trufazkoak, aspertuak. Joseba Sarrionandia

Zerbitzuburua meteorito bat bezain laster heldu zen, sala luzearen bertze muturretik, eta haren **aurpegierak** garbiki adierazten zuen ni ninduela helburu. Aingeru Epaltza

Ezinezkoa da, ordea, eta pentsatu nuen -neuk ere zuzen begiratzen nion bitartean- ederra zela oraindik: klasikoa zuen **aurpegiera**. Ramon Saizarbitoria

Oso gaztea zen neska, **aurpegiera** xalokoa eta ilehoria. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurpegiera aldatu egin (3); **aurpegiera aldatu gabe** (4); **aurpegiera hori** (3); **aurpegiera ikusita** (3); **aurpegiera serio** (3); **aurpegiera serioak** (3); **aurpegiera zeharo** (3); **aurpegiera zuen** (5); **bere aurpegiera** (4); **bi aurpegiera** (3); **halako aurpegiera** (4); **lehengo aurpegiera** (3); **zuen aurpegiera** (6)

aurpegierak ez zuen (20); **baina haren aurpegierak** (3)

haren aurpegieran (3)

---

aurpegikera ik **aurpegiera**.

---

aurpegiratu, aurpegira(tu), aurpegiratzen **1** du/da *ad* aurpegira eraman.

Irribarrea **aurpegiratu** zitzaion Karmeni. Xabier Montoia

Irribarre-mamu antzeko bat **aurpegiratu** zitzaion amari orduan. Mirentxu Larrañaga

Ilea baino gehiago zurdak hazten zitzaizkion, goizean moztu eta iluntzerako amorruz **aurpegiratzen** zitzaion bizar itxia, paparreko ilearekin bat eginik. Joxemari Urteaga

Itaunaren damua **aurpegiratu** zitzaion berehala, eta eskuaz ezabatu zuen aurrean zuen airearen txatal bat, bere arestiko berbak bertan idatziak balegoz moduan. Josu Landa

2 dio *ad* aurpegira eman, bota.

Agudo asko **aurpegiratuko** dizue, ezkutuan alderdikeriaz jokatzen baduzue. Elizen arteko biblia

Berak ere gehiago espero zuen, baina onargaitza zitzaion bulegokume putaseme hark horrelakoak **aurpegiratzea**. Fernando Morillo

Gavardek ez zion muzin egiten indarkeriaren ideiari; baina, batzuetan bere aberastasuna **aurpegiratzen** zioten, harentzat zirraragarriak ziren txantxa saminen bidez, eta komunista agertu nahiago zuen. Karlos Zabala

Gerra barregarri honi gerra deitzea **aurpegiratuko** digute! Josu Zabaleta

Zuzendariak halako zabarkeria **aurpegiratu** zidan nire janzkeran, baina ez zen konturatzen nire mantal zaharra, noizbait niretzat egokia zela juzkatu zuena, ez zela lehen bezain sexya. Joxan Elosegi

Halakoxea zen bera, soken kontra harrapatzen bazenuen noizbait, edo kontraesana **aurpegiratzen** bazenion, zezen bihurtuta oldartuko zitzaizun, bi adarrak urdailean edo gutxien espero zenuen lekuan sartzeraino. Hasier Etxeberria

Ez zuen seguruenik **aurpegiratzeko** moduko ezertxo ere egingo. Joxan Elosegi

Ematen du mundu guztiak haren bizitzaren berri daukala, mundu guztiak haren bizitza **aurpegiratu** nahi diola. Sonia Gonzalez

Askotan **aurpegiratu** izan zaio Oteizari bere erdaltasuna, eta berak ere sarri aitortu izan du, minez eta amorruz, sekulako muga zuela hori. Joxerra Garzia

---

aurre **1** *iz* zerbaiten alde nagusia, edo ohiko ikuspuntutik hurbilen dagoena.

Agian hori izan zen arrazoia artean deus aipatu ez izateko hartaz, Erkiziak **aurrea** hartua zigun hitzetan. Koldo Izagirre

Ertzainen 14 furgoneta eta dozenaka ertzain **aurrean** zituztela geratu ziren berriz manifestariak eta bertan egon ziren ordu eta erdi inguruz, Ertzaintzaren zein EAJren aurkako eta Angulo eta Sainzen aldeko oihuak eginaz. Berria - Harian

Latinetik frantsesera itzultzen loriatzen nintzen, lehenik testuak errana errespetatuz, perpausen barnean harat hunat ibiliz sasitik ezin jalgiz, gero beste mintzaira baten libertateari eskainiz **aurrekoari** zor nion obedientzia. Piarres Aintziart

Gure bizikletak haren etxe **aurrearen** kontra utzi eta atea jo genian. Josu Zabaleta

Larraitz **aurrean** zuela, sukaldera egin zuen. Pablo Sastre

Aurrean daukat berriro urdailean, sabelean ukabilkadak ematen zizkidan polizia. Agurtzane Juanena

2 (leku-denborazko atzizkiekin, singularrean). ik **aurrera**; **aurreko**.

Santutegi honen **aurreko** sala handia hogei metro luze zen. Elizen arteko biblia

Une batetik **aurrera** ez nuen ezer kontrolatzen. Itxaro Borda

Bizpahiru pertsona belauniko zeuden bere **aurrean**. Ramuntxo Etxeberri

Nork bere existentziaren **aurrean** duen beldurra uxatzeko bi era dira. Piarres Xarriton

Etorkizun honen **aurrean** beldurra nabaritzea ez da gauza harrigarria. Herria

Hortik **aurrera**, zer eta nola gertatuko den, espekulazioak dira.. Berria - Harian

Egun hartatik **aurrera**, zeharo bestelakoa bilakatu nintzen: ausarta, sendoa, setatsua. Jesus Mari Mendizabal

Kolpe eta mehatxuen **aurrean** isilik egon omen ziren; egiaz, erakundearen funtzionamenduarekiko informazio eskasa baizik ez zuten. Itxaro Borda

Bi ikuspegiok nahasten dira sarritan norbaiten **aurrean** jarri eta haren bizitza ulertu nahian hasten garenean. Pako Aristi

Zer egingo duzu hemendik **aurrera**, Jainko maitea, zer egingo duzu? Felipe Juaristi

3 (dagokion izen sintagmarik gabe)

Bizitza **aurrera** doan bezala, liburuak ere jarraipena eskatzen zuen; hain zuzen, eskuetan daukagunak gaztaroa ekarriko digu, ez berea baitezpada. Janbattitt Dirassar

Leku ona aurkitu genuela, ongi ezagutuko genituela bazterrak, uxarkan eramanen gintuztela **aurretik**. Koldo Izagirre

Testu hau **aurrera** doala, ideiak eta sentimentuak lasterka datozkit, bi korrikalarik ukondoak erabiliz bezala, zeingehiagoka. Piarres Aintziart

Agerreren aitzinean, bi dominiko daude ez **aurrera** ez atzera. Aingeru Epaltza

4 (aditzaren partizipio burutuaren eskuinean)

Eta hil **aurretik** justu harea horietatik atera zituen gizona agertu zen. Ramon Etxezarreta

Bide nagusira heldu **aurretik**, gure auzoko hiru etxeen saihetsetik pasa ginen baina suertez ez genuen inor ikusi. Daniel Landart

Lehen aldia da, beraz, teknika hau enbrioia txertatu **aurreko** diagnostiko genetikoa, goizenen jota, gaztaroan agertuko den gaitz bat saihesteko erabiliko dena. Berria - Gaiak

Lo egin **aurretik**, ia gauero: telebistan dozena erdi bat hildako ikusi eta gero ohean larrujotze bat. Pablo Sastre

Bilkura abiatu **aurreko** arratsalde hartan ordea, tipus-tapasean Joanes harrapatu nuen karrikan. Itxaro Borda

5 ***aurre alerta*** *(corpusean ez dago; ETCn* ***8*** *agerraldi)*

Aurrealerta edo **aurre alerta** hondamendi bat gertatzeko arriskuaren berri izaten denean, hura gertatu baino lehen agintari eskudunek ezartzen duten lehenengo arrisku egoera da. ETC-entziklopedia

Edonola ere, **aurre alertak** iraun bitartean Foruzaingoak, Errepideak Gordetzeko Kontrol Zentroak eta Nafarroako Larrialdien Agentziak errepide sarea bereziki begiratuko dute. ETC-prentsa

Ibaien emaria ikusita, **aurre alerta** egoeran izan dira Nafarroan. ETC-prentsa

6 ***aurre-aurrean hartuta***

Morna klanak lurrazpiko atearen **aurre-aurrean hartuta** zeukan tokia. Joanes Urkixo

7 ***aurre egin*** dio *ad* norbaiten edo zerbaiten eraginari uko edo aurka egin, amore eman gabe iraun. ik**buru egin**.

Orduan ez zen ausartu beste atsoei **aurre egitera**. Koro Navarro

Fundamentalismo berri honi **aurre egiteko**, erretegi bat zabaldu berri dute SoHon. Harkaitz Cano

Zenbatu zituzten israeldarrak ere, eman zizkieten beren janariak, eta siriarrei **aurre egitera** abiatu ziren. Elizen arteko biblia

Jaurlaritzak atzo aurkeztu zuen beroaldiari **aurre egiteko** plana. Berria - Harian

Ilehoriak **aurre egiten** zien haren erasoei lasai egoteko esanez, baina gure aita ez zen konbentzitzen eta ilehoria jiratu orduko atzetik eskua sartzera joan nahi zuen zuzenean. Pello Lizarralde

Ondo nahiz txarto, hortxe geratu dira mutil gaixoak, hotzari **aurre egiteko** zigarroari eta botilari zupaka, neskak izorratzeko bertan ahalik eta luzaroen gelditzea beste asmorik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Amikuzen, kanpainan abiarazia izan den suhar abertzalearen eraikitzeko gogoa indartu da % 5,75 eko emaitzari esker, eskuin atzerakoiari **aurre egiteko** egiazko aurkera bat izanez. Herria

Arriskuari bere sorlekuan **aurre egin** behar zaiola uste du. Aingeru Epaltza

Alabaren muturrari **aurre egiteko** ere indarge gelditu da. Eider Rodriguez

8 ***aurre eman*** aurre egin.

Aurre ematearren isilik begira geratu zitzaion, lasai irudia eginez, bere barruko egoera bestelakoa bazen ere. Migel Angel Mintegi

Heroi baten antzera atera da Jauna, borrokarako gartsu, gerlari baten antzera, gudu-irrintzi zolia eginez, etsaiei bularrtsu **aurre emanez**. Elizen arteko biblia

Nire lagun hark neska portuges eder-eder bati **aurre eman** zion lehen aldiz adorez betea, nahiz eta ekin aurretik beldurrez egon zen ea Brasil behar bezala ordezkatuko ote zuen. Karlos Zabala

Zaila da galderari **aurre ematea**. Bernardo Atxaga

9 ***aurrea eraman*** aldea atera.

Eta mutikoek al diete **aurrea eraman** auzian? Juan Garzia

10 ***aurrea hartu*** zerbait beste norbaitek baino lehenago egin; lehentasuna norbaiti kendu. ik**aitzindu**.

Herria bakeratu egiten zen une hartako gaitzak arintzean, eta ondoren ezer eskatzen ez zuenez, senatua ez zen arduratzen gaitzei **aurrea hartzen**. Iñaki Iñurrieta

Hezkuntza eta kultura aski dira arrazismoaren gisako gaitzei **aurrea hartzeko**? Berria - Kultura

Hala, **aurrea hartu** zien galderei, amak eta amonak kontatutako zatiei odol berria emanez... eta taupadak. Anton Garikano

Israelgo Gobernua, ebazpenari **aurrea hartu** nahirik, presioa egiten ari zaie Europako gobernuei, Nazio Batuetan haren kontrako ebazpen bat onar ez dezaten. Berria - Mundua

Zalantzan nenbilela ikusita, **aurrea hartzea** erabaki zuen nonbait. Anjel Lertxundi

Nola dioten **aurrea hartuta** gure ametsari euren normaltasunaren izenean. Hasier Etxeberria

11 ***aurreak erakusten du atzea nola dantzatu***

Bakoitzak bere iritzikideentzat botatzen zuena, lehenek esaten zuten, **Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu**, bigarrenek zioten, Lehen ogi-papurra, txolarreentzat, hirugarrenek ironikoki bukatzen zuten, Azkena irri egiten duenak, gustuen egiten du. Jon Alonso

Pirpok - **aurreak erakusten du atzea nola dantzatu** - erantzun egiten zien, protestaka hasten zen bera ere, lanturuka konfiantza faltagatik. Bernardo Atxaga

12 ***aurrean bidali*** norbait leku batetik bidali, kanporatu.

Liburuari azaletik begiratu eta **aurrean bidali** nahi izan ninduten. Joxan Elosegi

13 ***aurrean egon*** beste norbait dagoen toki berean, hura ikusten dela, egon.

Aulkiari buelta eman behar dio telefono **aurrean dagoen** ispilu handian bere burua ez ikustearren. Sonia Gonzalez

Gaur, ni **aurrean nagoela**, xasurrei errietan egingo diezu, ea behingoz zentzatzen diren. Martin Anso

Mirarirekin hitz egiteko aukerarik izango balu bederen, Arantxa, Irene eta besteak **aurrean egon** gabe. Fernando Morillo

Eta Asierri ere ez zaio ardura Aloñaren ama **aurrean egotea**. Luis Elberdin

14 ***aurrean eraman*** zerbaitek ibilbidean aurkitzen duena bultzaka eraman eta bota.

Jakintsuak auzia ebazten ari ziren bitartean, harrabots sor bat entzun zen: tapoiak amor eman, eta ura putzura eta galeriara amildu zen zorrotzean, trena bere bagoi guztiekin **aurrean eraman**, eta lantokia txiki-txiki egin. Juan Garzia

AHTren egitasmoa martxan jarri zenetik, "bizilagunak eta inguruneak **aurrean erametan** ari da, eta proiektuak errespetu eza du oinarri", azaldu du Arabako sindikatuak. Berria - Harian

-Iparraldetik datoz, harrapatzen duten guztia **aurrean eramanez**. Juan Garzia

Orain ez hainbeste, memoriak erraz atera du gertaera lauso artetik, Durangoko autopistan ordainsaria pagatzeko itxaroten zeuden auto batzuk **aurrean eraman** zituen kamioi aleman batek. Iñigo Aranbarri

15 ***aurrean hartu***

Alba de Tormesko zubiak **aurrean hartuta** eraman zituen urjausiak. Pello Zabala

Eta hodian behera, urdailerainoko bidea nola egiten zuen antzeman zenuen, labak bezala, denak **aurrean hartuta**. Hasier Etxeberria

Honelaxe jokatu behar du haizearen putzak ere, zeinak, ibai indartsu gisan zernahi jotzen duela, dena **aurrean hartzen** eta bulta etengabez eraisten baitu, edo zirimol bihurrian dena erauzten eta azkarki erametan baitu uhol birakarian. Xabier Amuriza

16 ***aurrean hartuta***

Landis **aurrean hartuta** jarraitu zuten. Berria - Kirola

Haiek gogoan, eta beste pare bat **aurrean hartuta**, abuztu oporraldikoa beste alderdi batetik begira genezakeela dirudit. Pello Zabala

Eta hodian behera, urdailerainoko bidea nola egiten zuen antzeman zenuen, labak bezala, denak **aurrean hartuta**. Hasier Etxeberria

Behiala Orreagatik Ainarbe aldera ekartzen omen zituzten mendibehiak negutzera, eta udalehenean beren behisailak **aurrean hartuta**, joare kalanka eta marru, atzera goimendietara abiatzen zirenean, hala esaten omen zuten goizuetarrek. Patziku Perurena

17 ***aurrean jarri***

Jaunaren aingerua **jarri** zitzaion **aurrean** Balaani, bidea oztopatzen. Jose Antonio Mujika

Hondatu ditut **aurrean jarri** zaizkizun etsaiak oro. Elizen arteko biblia

Lasai asko egin diezaioke eraso **aurrean jartzen** zaion edonori. Bernardo Atxaga

Pragmatismoak, eraginkortasunean oinarrituriko jarrera horrek, **aurrean jartzen** zaizkion aukera eta gertakizun guztiak baliatzen ditu. Anjel Lertxundi

Botila ardoa **jarri** zidan **aurrean**. Anjel Lertxundi

Ipurdi eder bat **aurrean jarri** eta harekin gozatzeko erregutu zidanean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bran leizearen parera iritsi zen, zuloaren aurre- **aurrean jarri** eta zaunka hasi zen artegatasunez. Joanes Urkixo

Gauerdian ate **aurrean jarri** nintzen zelatan. Matías Múgica

· *(-en atzizkiaren eskuinean)* Detektibe pribatua nauzu -agiria begien **aurrean jarri** zion. Migel Angel Mintegi

Gero, bi gizon maltzur-gaizto etorri eta Naboten **aurrean jarri** ziren. Elizen arteko biblia

-Atera zeuk likorea -esan zidan, kikara bat nire **aurrean jarri** eta gero-. Migel Angel Mintegi

Ruche jaunaren aurre- **aurrean jarri** zen: [...]. Jon Muñoz

Ilobaren irudiaren **aurrean jarri** denean, sentimendu gaizto bat esnatzen sumatu du. Lander Garro

18 ***aurrez aurre*** **1** *adlag* batak aurrean bestearen aurrea duela. ik **buruz 1**; **beko 3**; **aurkez 2**; **aurpegi 10**.

Osaba ere eseri zen, nik **aurrez aurre** neukan besaulki batean. Jon Muñoz

Aurrez aurre zeukaten Hagrid, balezta bisitariengana zuzenduta, eta haren atzean Fang, basurdetarako txakurra, ozen zaunkaka. Iñaki Mendiguren

Negua zen, baina neguko arratsalde epela, Miren eta biak zuhaitz baten oinean **aurrez aurre** eseri zirenean. Ramon Saizarbitoria

Aurreraxeago, Berger kalean, bitartekarien biltegi biluziak azaldu zitzaizkien **aurrez aurre**. Karlos Zabala

Historiak bi-biok jarri ditu **aurrez aurre**. Andres Urrutia

Harik eta berriro lepozapidun emakumea **aurrez aurre** gurutzatu zitzaidan arte. Juan Garzia

2 *adlag (-en atzizkiaren eskuinean)* Ez zuen nahi, ezta ere, Maria Sara doktorearen **aurrez-aurre** gelditu. Jon Alonso

Zera esan nahi dut alegia, ongi lagundu zeniezadake irain honi zor zaion bengantza hartzen, gure begien **aurrez aurre** Rozinanteri egin zaiona alegia. Patxi Ezkiaga

Eskailburu berean bizi nintzen, zure atearen **aurrez aurre**. Eduardo Matauko

19 ***atari-aurre***

Aitaren lan-jaka zikina ez zen aurrerantzean zintzilik izan etxeko **atari-aurrean**, eta haren pipa-usain sarkorra ere nekez lerratzen zen orain zoko guztietara. Mirentxu Larrañaga

Gau hartan buruz askotan kalkulatu bezala, **atari aurreko** eskailerak -harrizko eskailerak- jo zituen bete-betean. Aitor Arana

20 ***atze-aurre*** *iz pl* atzeko eta aurreko aldeak.

Hain larria da egoera?, galdetu nion, **atze-aurre** guztiak biltzeko ahaleginean. Anjel Lertxundi

Noski halako gogo-zabal egin gintuenak, **atze-aurreen** so egile, ez zigun eman gaitasun eta jainkozko arrazoimen hori erabiltzeke lizun zedin gugan. Juan Garzia

Atze-aurredun kapa zekarren soinean, zapi txuri batez lotu-lotua. Patxi Ezkiaga

21 *bazkal aurre* ik **bazkalaurre**.

22 ***eginari aurre egin***

Eginari aurre egin behar. Patxi Iturritegi

23 ***gurdia idien aurrean/aurretik jarri***

Baina ez dezagun **gurdia** idien aurrean jarri, eta geldi gaitezen erromatarren garaian. Bernardo Atxaga

Hau da, **gurdia** idien aurrean jartzeko joera dugu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gurdia idien aurretik jartzea bezalakoa baitzen halako erabaki bat hartzea. Joan Mari Irigoien

24 ***orga idien aurretik jarri*** ik gorago **17** eta **4.**

Hori ez al da orga **idien** aurretik jartzea? Iñaki Iñurrieta

25 ***su aurre*** *(orobat* ***sutaurre****)* beherko suaren aurrea.

Bertan zeuden, **su aurrean**, zumitzezko jarleku apalak eta keak eta urteek leundu zuten zizailu galanta, ta zapaldetan, suila, morko ta beste urontzi batzuk. Xabier Mendiguren Elizegi

Gela zeru-urdin bat zen, urrinez gozatua, zoruan piztia larruak zabalduta zituena, eta, **su aurrean** [...] aulki apal baten gainean, emakume ozta-ozta jantzi bat nire zain. Josu Zabaleta

Eguzkitik argi izpi berriak erioten baitira eta lehenengoak hil egiten dira, **su aurrean** irundutako artilea bezala. Xabier Amuriza

26 *taberna-aurre* *(orobat **tabernaurre**)* *iz* taberna baten aurrealdea.

Berton -esan zuen bisitariak, **taberna**-aurre bateko mahaiak seinalatuz. Edorta Jimenez

Emaztea adatsetik zeramala gelditu zen **tabernaurre** guztietan "Beha ezazue puta hau, senarra lanera joateko zain egoten duk auzoarekin oheratzeko!" zuela anuntzio. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 21 aldiz agertzen direnak)

arazoari aurre egiteko (35); **arazoei aurre egiteko** (43)

aurre aurrean (100); **aurre egin ahal** (89); **aurre egin behar** (212); **aurre egin beharko** (89); **aurre egin beharrean** (27); **aurre egin nahi** (42); **aurre egin zien** (21); **aurre egin zieten** (26); **aurre egin zion** (47); **aurre eginez** (77); **aurre egingo** (106); **aurre egitea** (201); **aurre egiteko gai** (64); **aurre egiteko modu** (27); **aurre egiteko neurriak** (60); **aurre egiteko prest** (64); **aurre egiten** (352); **aurre egitera** (49); **aurre hartu** (33); **aurrez aurre izango** (37); **aurrez aurre jarri** (54); **aurrez aurre jartzen** (35); **aurrez aurre jo** (28)

bati aurre egin (41); **bati aurre egiteko** (51); **beharko dio aurre** (32); **berriei aurre egiteko** (26); **denboraldi aurre** (24); **die aurre** (46); **diote aurre** (52); **dira aurrez aurre** (28); **egin aurre** (26); **egin zion aurre** (34); **egingo dio aurre** (23); **egoera horri aurre** (22); **egoerari aurre egiteko** (37); **erasoari aurre** (23); **erasoei aurre** (35); **ere aurre egin** (25); **erronkari aurre** (23); **erronkei aurre** (23); **gaitzari aurre egiteko** (42); **gastuei aurre egiteko** (21); **guztiei aurre** (28); **haiei aurre** (23); **hari aurre** (38); **honi aurre egiteko** (28); **horiei aurre egiteko** (48); **horri aurre egin** (34); **horri aurre egiteko** (178); **indarkeriari aurre egiteko** (30); **nola aurre egin** (35); **partidari aurre** (22); **terrorismoari aurre egiteko** (35); **zaio aurre** (21); **zien aurre** (30)

aurrea hartu zion (48); **aurrea hartuko** (24); **aurrea hartuta** (39); **aurrea hartuz** (37); **aurrea hartzea** (45); **aurrea hartzeko** (78); **aurrea hartzen** (60); **denboraldi aurrea** (72); **hartu zien aurrea** (22); **hartu zion aurrea** (21); **markagailuan aurrea** (24); **zuen aurrea** (25)

aitaren aurrean (28); **aldare aurrean** (38); **ate aurrean** (165); **atearen aurrean** (52)

aurre aurrean (100); **aurrean agertu zen** (24); **aurrean agertzen** (25); **aurrean ahozpeztu** (22); **aurrean amore** (43); **aurrean aurkeztu** (40); **aurrean aurkitu** (23); **aurrean aurkitzen** (26); **aurrean azaldu** (26); **aurrean belaunikatu** (21); **aurrean belauniko** (26); **aurrean bere** (52); **aurrean beste** (21); **aurrean bezala** (29); **aurrean bildu ziren** (25); **aurrean dago** (44); **aurrean dagoen** (56); **aurrean duen** (63); **aurrean dugun** (29); **aurrean duten** (22); **aurrean egin** (92); **aurrean egindako agerraldian** (29); **aurrean eginiko** (29); **aurrean egiten** (21); **aurrean egon** (47); **aurrean egotea** (21); **aurrean ere** (86); **aurrean esan** (32); **aurrean eseri zen** (31); **aurrean eserita** (85); **aurrean ez** (147); **aurrean ezin** (31); **aurrean gelditu zen** (62); **aurrean geratu** (51); **aurrean hitz** (37); **aurrean ikusi** (46); **aurrean ikusten** (36); **aurrean ipini** (32); **aurrean isilik** (21); **aurrean izan** (70); **aurrean izango** (66); **aurrean jarrera** (23); **aurrean jarri zen** (28); **aurrean jarrita** (31); **aurrean jartzea** (21); **aurrean jartzen** (79); **aurrean makurtu** (35); **aurrean neukan** (23); **aurrean paratu** (23); **aurrean salatu** (23); **aurrean zegoela** (23); **aurrean zegoen** (87); **aurrean zer** (33); **aurrean zeuden** (26); **aurrean zeukan** (54); **aurrean zituen** (24); **aurrean zuela** (26); **aurrean zuen** (48); **aurrean zutik** (69)

auzitegiaren aurrean (22); **baina aurrean** (32); **baten aurrean gaude** (49); **baten aurrean gaudela** (32); **baten aurrean gelditu** (34); **batzordearen aurrean** (50); **batzuen aurrean** (42); **begi aurrean** (144); **beraien aurrean** (34); **beraren aurrean** (71); **bere aurrean** (243); **bere begien aurrean** (35); **bere zaleen aurrean** (22); **beren aurrean** (21); **berri baten aurrean** (30); **berriaren aurrean** (34); **besteen aurrean** (39); **bizitzaren aurrean** (23); **denboraldi aurrean** (83); **dendaren aurrean** (21); **denen aurrean** (109); **duen egoitzaren aurrean** (23); **egoera horren aurrean** (46); **egoeraren aurrean** (34); **egoitza aurrean** (33); **egoitzen aurrean** (26); **epaileaen aurrean deklaratu** (33); **epaileen aurrean** (21); **epaitegiaren aurrean** (23); **erasoen aurrean** (32); **ere aurrean** (26); **erregearen aurrean** (42); **etxe aurrean** (89); **etxearen aurrean** (47); **geltokiaren aurrean** (26); **gerra aurrean** (25); **gizartearen aurrean** (42); **gure aurrean** (115); **gure begien aurrean** (26); **guztiaren aurrean** (67); **guztien aurrean** (130); **han aurrean** (33); **handi baten aurrean** (30); **handiaren aurrean** (25); **hauen aurrean** (26); **hedabideen aurrean** (125); **heriotzaren aurrean** (27); **herriaren aurrean** (50); **herritarren aurrean** (24); **honen aurrean** (103); **hor aurrean** (28); **horien aurrean** (92); **inoren aurrean** (36); **ispilu aurrean** (62); **ispiluaren aurrean** (87); **izango du aurrean** (34); **jainkoaren aurrean** (150); **jaunaren aurrean** (171); **jende aurrean** (41); **jendearen aurrean** (62); **kameren aurrean** (22); **kazetarien aurrean** (58); **komunikabideen aurrean** (93); **lagunen aurrean** (61); **legearen aurrean** (25); **legebiltzarraren aurrean** (29); **leiho aurrean** (22); **mahai aurrean** (27); **mahaiaren aurrean** (37); **munduaren aurrean** (24); **muturren aurrean** (27); **nagusiaren aurrean** (43); **neure aurrean** (43); **nire aurrean** (285); **nire begien aurrean** (36); **osoaren aurrean** (46); **parlamentuaren aurrean** (27); **prentsaren aurrean** (59); **publikoaren aurrean** (39); **suaren aurrean** (28); **telebista aurrean** (32); **telebistaren aurrean** (52); **terrorismoaren aurrean** (21); **udaletxe aurrean** (37); **udaletxearen aurrean** (45); **zuen aurrean** (67); **zure aurrean** (117)

aurrerantz makurtu (22)

---

aurreabisu *iz* aurrez emandako abisua.

Espainiako arduradun polizialek ekintzak gertatu ziren lehen unetik jakin bazekiten ETA ez zela ekintza horien arduraduna: ez ekintza egiteko moldea (**aurreabisurik** gabe) eta ez helburu (herritar xumeak zeramatzan trenak) ez dira inoiz Euskadi Ta Askatasunaren molde eta helburuak izan. Berria - Euskal Herria

---

aurreakordio *iz* behin-behineko akordioa, indarrean jartzeko osatzea edo berrestea behar duena.

Horixe dio behintzat Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak sinatu duten **aurreakordioak**. Berria - Kultura

Arrantzaleek diru laguntzak jasotzeko **aurreakordioa** hitzartu dute. Berria - Ekonomia

Zuzenketa batek proposamena atzera botatzeko eskatzen du, baina ez da espero aurrera ateratzea, talde sozialistek eta kontserbadoreek **aurreakordioa** baitute edukia arintzen duen testua onartzeko. Berria - Harian

---

aurrealde *iz* zernahiren aurreko aldea. ik **aitzinalde**.

Tenpluaren **aurrealderako** hamazazpi eta erdina metroko bi zutabe egin zituen; bakoitzak gainean bi metro eta erdiko kapitel bana zuen. Elizen arteko biblia

Bonba-auto guztiek polizi etxeen **aurrealdean** egin zuten eztanda. Berria - Mundua

Berriro neurtzen dut, nire begiez, hodeietatik bereizten nauen distantzia, eta **aurrealdea** jasotzen dut. Josu Zabaleta

Agian, beste pintore hark esandakoa gertatzen zitzaidan niri ere, alegia ilunak bultzatzen ninduela, eta **aurrealdean** seinale onak baizik ez nituela ikusten. Bernardo Atxaga

Etxolan sartu denean, untxiak, ilea kolore bizitan, belarriak bata bestearen gainean, sudurra goian, **aurrealdeko** hankak danbor-makilak bezain tente, Axenarioren inguruan dabiltza, lagunkoi eta artatsu. Itziar Otegi

Osabak erreka ondoko eta kobazuloaren **aurrealdeko** harkaitz apal bat seinalatu zuen hura agintzean. Aitor Arana

Albo batera bazterturik, nik begirune handiz ibiltzen ikusi dut eta, **aurrealdeko** bankuetara iritsi ondoren, belaunikatu eta bertan egonean geratu dela. Patxi Zubizarreta

Dendatxo bat antolatuta zeukan etxetxoaren **aurrealdean**, erakusleiho zikin bat eta guzti. Javi Cillero

Udaz geroztik egon gara **aurrealdea** indartu nahian, laguntza gehigarria emango digun jokalari baten bila. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurrealde osoan (3)

aurrealdea indartzeko (4); **etxearen aurrealdea** (3)

mihiaren aurrealdeak (3)

agertokiaren aurrealdean (3); **aurrealdean ere** (4); **aurrealdean izan** (4); **aurrealdean webo** (3); **aurrealdean zeukan** (3); **baina aurrealdean** (4); **da aurrealdean** (3); **dute aurrealdean** (3); **etxearen aurrealdean** (3); **jauregiaren aurrealdean** (3); **tenpluaren aurrealdean** (3); **zen aurrealdean** (3); **zuen aurrealdean** (9)

aurrealdeko lotailu (4)

agertokiaren aurrealdera (3); **aurrealdera etorri** (3); **gelaren aurrealdera** (3); **herriaren aurrealdera** (3)

---

aurreatezatu *(corpusean ez dago; ETCn **46** agerraldi)* **1** *izond* aurrez atezatua.

Diseinu horren beste abantaila bat da igogailuen makina-gela igogailu-zuloaren goiko aldean, pantailaren gainean, jartzeko aukera dagoela, eta, hala, **aurreatezatu** egiten da egituraren grabitate-zentroa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konpresio-elementuen artean esekitako kable **aurreatezatuz** osatutako egitura, ezarritako kargak zuzenean jasateko prestatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Batzuetan, material zeramikoei **aurreatezatu** bat egiten zaie trakzioarekiko erresistentzia handitzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraien barnean zulo bat jarri zitzaien **aurreatezatutako** kableen gordeleku gisa balio zedin. ETC-entziklopedia

Mota honetako zubiak enborreko zubitik datoz zuzenean. Zura, altzairua edo hormigoia erabiliz egiten dira (armatua, **aurreatezatua** edo post-tenkatua). ETC-entziklopedia

2 ***hormigoi aurreatezatu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hormigoia armatzeko beste teknika bat egituran konpresiozko hondar-tentsioak sartzean datza; hala sortutako materialari **hormigoi aurreatezatu** esaten zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aurrebaldintza *iz* aurrez ezarritako baldintza.

Hondakinak sortzea **aurrebaldintza** beharrezkoa ere bada zerbait berria sortzeko bai urbanismoan, bai arkitekturan, bai kulturan. Joseba Zulaika

Horrez gainera, Israel aintzat hartzea ere jarri diote **aurrebaldintzatzat**. Berria - Mundua

Aipatu eredua edo legea betetzeko, **aurrebaldintza** garrantzitsu batzuk bete behar dira. Iñaki Heras

Hizkuntza ikastea **aurrebaldintza** mingarri bat baino ez da literatura irakurtzeko. Iñaki Mendiguren

Ez ditzagun **aurrebaldintzak** jarri eta utz diezaiogun politikari bere lana egiten. Berria - Harian

---

aurreberotu, aurrebero(tu), aurreberotzen *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi)* da/du *ad* aldez aurretik berotu.

Ohiko labean erradiazio infragorriak, mikrouhinek baino askoz energia gehiago duena, ia molekula guztien bibrazioa eragiten du: elikagaiarenak ez ezik, ontziarenak eta labeko airearenak ere berotzen ditu (horregatik jakia sartu aurretik labea beti **aurreberotu** egin behar da, denbora aurrezteko, ikusi 9. gaia). ETC-zientzia, zuzenbidea

Erabat zehatzak diren neurketak egiteko, eskuak garbitzekoa ezinbestekoa da, baita hauek, arragoara itsas daitezkeen zikinkeria eta hautsez libre egotea ere, honek, neurketa grabimetrikoak faltsutuko bailituzke. Portzelanazko arragoak higroskopikoak dira, hau da, airetik, hezetasun kopuru bat xurgatzen dutela. Arrazoi honegatik, portzelanazko arragoa zein lagina **aurreberotu** egiten dira pisatu aurretik. Honela, interferentziarik gabe, arragoaren zein laginaren pisua adieraz daiteke. Kasuren batzuetan, bi edo hiru aldiz egiten da hau, neurri grabimetrikoarekin arazorik ez dagoela eta erabat lehor dagoela jakiteko. ETC-entziklopedia

---

aurrebista *(corpusean ez dago; ETCn **103** agerraldi)* *iz* aldez aurreko bista edo ikuspegia.

Nola ez zituen ezagutuko bada, derrepentean errekonozitu zituen-eta, pantailan agertu bezain laster, kasik **aurrebista** osoki kargatu baino lehen, artean orban lausoak baino ez zirela. ETC-literatura, saiakera

Nabarmentzeko prestakuntzen artean honako hauek: CMOS APS-H (x1.3) 10.1 megapixeleko sentsorea, hiru hazbeteko **aurrebistadun** pantaila (Live View deitu diote), hamar fotograma segundoko, ISO 50/6.400 sentikortasuna, sentsore garbiketa, CompactFlash eta SD/SDHC txartelak onartzen ditu. ETC-prentsa

Ezkerraldean RSS jario zerrenda agertzen da, eta eskuman ikus daitezke jario bakoitzeko artikuluak, **aurrebistarekin** zein ez. ETC-prentsa

Gainera, sarreraren **aurrebista** eskaintzen du. ETC-prentsa

Horientzako askotariko **aurrebistak** nahiz kodeko hitz bereziak automatikoki betetzeko laguntzak dauzka, HTML, CSS eta PHP lengoaietarako. ETC-prentsa

Kanalen **aurrebista** -monitorean hainbat bideo-iturriren irteerak azaltzen dira, eta, etengabe, kamera bakoitzaren irteera erakusten dute, baita bideo-grabazioak, diapositiba-eskanerrak eta kanpo-iturriak ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erabili beharreko dirua murriztea da helburu nagusia etxe baten salmentan, edo negozio baten **aurrebista** hobetzerako orduan. ETC-entziklopedia

Prozesu hau azkartzeko asmoz, diseinatzaileek dedikaturiko chatboten diseinu tresnak erabil ditzakete, berehalako **aurrebista**, talde lanerako erraztasunak eta bideora esportatzea ahalbidetzen dutenak. ETC-entziklopedia

Bertan enpresaren AutoCAD programa ospetsuaren doako web **aurrebista** bertsioa egin zuen. ETC-entziklopedia

2017ko abendura arte errefaktorizazioa garapen-taldearen ardatz nagusia bihurtu zen lehen **aurrebista** erabilgarria kaleratzeko. ETC-entziklopedia

Batzuetan, mezu hauek aukeratzerakoan (mezua ireki gabe) hauen **aurrebista** bat ikus dezakegu. ETC-entziklopedia

---

aurredenboraldi ik **denboraldiaurre**.

---

aurredinastiko *(corpusean ez dago; ETCn **69** agerraldi)* **1** *izond* aurrez atezatua.

Naqada I Aroan egiptoar **aurredinastikoek** obsidiana ekarri zuten Etiopiatik, eta lauzak egiten ikasi zuten hori erabilita. ETC-entziklopedia

2 ***Aro Aurredinastiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **54** agerraldi)*

Abidosen aurkitu dira Egiptoko **Aro Aurredinastikoko** agintarien aztarnak, tenpluak eta hilobiak. ETC-entziklopedia

Egiptoko **aro aurredinastikoan**, bi erresuma independente agertu ziren: Egipto Garaia eta Egipto Beherea. ETC-entziklopedia

Egiptoko **Aro aurredinastikoa** izenarekin bi lurren bateraketa gertatu aurreko aro aurrehistoriko eta historikoa ezagutzen da. Neolito garaikoa da, eta egiptoar estatuaren eraketa prozesua erakusten du. ETC-entziklopedia

Uas zetruaren erabilera, beharbada, Egiptoko **aro aurredinastikoan** hasi zen, ganadua gidatzeko bastoi bat bezala, arrazoiren batengatik, boterea eta indarrarekin lotutako elementu bat sinbolizatzera pasa zena. ETC-entziklopedia

3 ***Egiptoko Aro Aurredinastiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **37** agerraldi)*

Egiptoko Aro aurredinastikoa izenarekin bi lurren bateraketa gertatu aurreko aro aurrehistoriko eta historikoa ezagutzen da. ETC-entziklopedia

Abidosen aurkitu dira **Egiptoko Aro Aurredinastikoko** agintarien aztarnak, tenpluak eta hilobiak. ETC-entziklopedia

Egiptoko aro protodinastikoa (K.a. 3200 eta K.a. 3000 bitartean kokatzen dena), **Egiptoko aro aurredinastikoaren** azken fasetzat hartzen da. ETC-entziklopedia

Egiptoko Aro Aurredinastikoan zehar egipziarrek izadiaren gertaerak jainkotu zituzten. ETC-entziklopedia

Klimak influentziak garrantzitsua zuen: **Egiptoko Aro Aurredinastikoa** aro aurredinastikoan, desertu zonetan landaredia zegoen eta artzaintza ahalbidetzen zuen horrek. ETC-entziklopedia

---

aurrefabrikatu **1** *izond* eraikuntza bati dagokiola, aurrez puskaka ekoitzitakoa. ik **prefabrikatu**.

Eraikina metalikoa da, **aurrefabrikatua**, kutxazaineko txanda iristen zaidanean bostehun mila lira ateratzen ditut eta autora itzultzen naiz. Mikel Hernandez Abaitua

Egitura **aurrefabrikatua** da eta orotara 12 laguni eskainiko die gaueko aterpea. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Itzartzean, begiak zabaldu orduko, ahots **aurrefabrikatu** batek iragarriko dizu ingelesez. Joseba Sarrionandia

Hau da, teoria oralistari jarraiki, ahozko poetak unitate **aurrefabrikatuez** lantzen ditu bere lanak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

3 ***etxe aurrefabrikatu***

One Week horretan, Buster Keatonek **etxe aurrefabrikaturiko** baten zatiak jaso ditu, dozena bat kaxatan antolatuta, ezkontzako opari lez. Joseba Sarrionandia

---

aurregitasmo *iz* egitasmo baten behin-behineko idazketa edo zirriborroa.

Hauteskunde legea aldatzeko lege **aurregitasmoa** Eusko Legebiltzarrera igortzea erabaki zuen atzo Ibarretxeren gobernuak, Demotek izeneko bozketa sistema elektronikoa Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ezarri ahal izateko Berria - Euskal Herria

---

aurregun *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* bezpera.

Hona hemen ahaide maite bat, lagun hurko bat hil-hurrena, bidaia handiaren **aurregunean** artean ekipajea egin gabea, bere egoera nori eta niri agertzera behartua, guztiz aukeran behartua! ETC-literatura, saiakera

Aurregun gauean, aita hil ondoren erremediorik gabe klinika itxi egin beharko zutela esan zionean, berak animatu egin zuen esanez ez zuela zergatik halakorik gertatu behar [...] ETC-literatura, saiakera

Urte aietan bazan Mondragoen oitura eder bat: San Juan **aurregunean**, edo obeto esateko aurregauean, oso berandu izaten baitzan, Eliz Nagusiko elizpean jendea bildu ta elizako ateburuan zuen. ETC-prentsa

Ezustean harrapatu ninduen hemen ere oroitarazle bat (honako hau ere zaharra eta tragikomikoa) agertzeak: Monsieur Taupek, oso rol txikian, hiru minutuko esku hartzean **aurreguneko** auzi guztiak. ETC-prentsa

---

aurrehistoria ik **historiaurre**.

---

aurreigarri, aurreigar, aurreigartzen du *ad* aldez aurretik igarri.

Iristen garenerako, Sena ibaiaren ertzeko ontzilekuetan, nik **aurreigarri** bezala, ontziak geldi dira. Edorta Jimenez

---

aurreikusezin *(corpusean ez dago; ETCn **56** agerraldi) izond* aurreikusi ezinezkoa.

Ez dira agertzen, baina halakoxe **aurreikusezinak** dira-eta burubideak, Javier Fontecha ez da horregatik lasaiago geratu. ETC-literatura, saiakera

Pertsona buruaskia eta konprometitua ematen zuen, bere buruaz ziur dagoena, baina, aldi berean, **aurreikusezina**, bat-batekoa, taldean nahiz bakarka ondo moldatzen diren horietakoa. ETC-literatura, saiakera

Gero, memoria eta zentzua galduta, okerrera, hobera, okerrera egiten zuena, berez **aurreikusezina** zen jario baten arabera, dena uhinez, barealdi erabatekoz, triskantzaz eta erorikoz osatua. ETC-literatura, saiakera

Liburuak badu bigarren tesi bat, lehenengoaren adar edo ezpal dena: populismoak eskatzen du alderdi politikoek politikan duten zentraltasuna birpentsatzea, herri mugimenduekin lotuz, baina era orokorrago batean, politika zabalago, heterogeneoago eta **aurreikusezinago** batean txertatuz. ETC-literatura, saiakera

Gainean zeukan egunetan, amaren animoa **aurreikusezina** zen, haserrekor egon zitekeen, umezainaren keinu oro kritikatzeraino. ETC-literatura, saiakera

Hagitz konplexuagoak dira kontuak, zorionez ala zoritxarrez, gizakiak konplexuak eta, batzuetan, **aurreikusezinak** garen neurrian. ETC-literatura, saiakera

Laurogeiko hamarkada rockero hartan Marino guztien kuttuna eta Cabestany public relations number one bazen, Gorospe **aurreikusezina** zen. ETC-prentsa

Izan ere, energia berriztagarriak erabiltzean," naturak agintzen du", eta natura aldakorra eta **aurreikusezina** da. ETC-prentsa

Bada, ordea, beste hipotesi bat, baikorra bezain **aurreikusezina**: alegia, euskal gizarteak behar duen adiskidetzeko bidean terrorismo-legeria salbuespenezkoa indargabetzen joatearena. ETC-prentsa

Emaitza zehatza **aurreikusezina** ETC-zientzia, zuzenbidea

Halabeharrezko arrazoitzat hartu beharko da alderdien borondateari arrotz, kontrolaezin edo **aurreikusezin** zaion edozer. ETC-zientzia, zuzenbidea

Soziala dena beste era batez ulertu zuen, bizitza soziala **aurreikusezina** zela nabarmenduz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ilargi-joa edo ilargi-eria zoroaldiak eta umore-aldaketak aldiro izaten dituen pertsona da, eta beraz jokabide **aurreikusezina** izaten duena. ETC-entziklopedia

Gutxi hausnartutako planek ondorio txar eta **aurreikusezinak** izan ditzakete. ETC-entziklopedia

Izar mota honen argi kurba argi kurbek, aldaketa **aurreikusezin** bat erakusten dute zabaltasun eta periodo tarte zabal batean zehar. ETC-entziklopedia

---

aurreikusgarri *izond* aldez aurretik ikusteko modukoa.

Mekanismo bat sortuko dugu Errusiak... merkatu globala energiaz hornitzeko, ekonomiak garapen on eta **aurreikusgarria** izatea ahalbidetzeko moduan. Berria - Harian

---

aurreikusi, aurreikus, aurreikusten **1** aurrez ikusi.

Aurreikusteko makina moduko bat da gure organismoa, **aurreikuste**-aparatu automatiko mordoxka batek osatua. Juan Garzia

Autobideko lapurketetarako **aurreikusia** zeukan orrialdea nire ardurez kanpo uztea. Aingeru Epaltza

Aurreikusi ez zuen aukera bakarra: Kat bertan, Kakarraldoko barran, morroi batek lagunduta, berbetan, gertu gertutik. Sonia Gonzalez

Rebollok **aurreikusten** dituen arriskuen oinarria urtegia hartzen duen inguruaren ezaugarri geologikoak dira. Edurne Elizondo

Hil egin zen, eta, berak **aurreikusi** bezala, nahitaez itzuli behar izan zuen urte askotarako -eternitate osorako-, etengabe agerraldiak egitera, bere ustetan nahikoa maite izan ez zituen kaleetan gora eta behera. Eskarne Mujika

Ezohiko doitasunez pentsaturik eta **aurreikusirik** zeukaten dena. Jose Morales

Negropontek **aurreikusi** zuen harmonizazioak kale egin du alde guztietatik. Txema Ramirez de la Piscina

Kasuak **aurreikusi**, duintasuna noiz urratzen den ebatzi, zorrozten joan, azken batean, irudien gaineko sistema morala adostu ahal izateko. Iñigo Aranbarri

Beti gertatzen zait gauza bera **aurreikusi** ez dudan erantzunen bat jasotzen dudanetan, baina ez dut gogoan inoiz hain ustekabeko erantzun goitik beherako bat jaso izana espero nuen heziera oneko ezein esamolde baten ordez. Anjel Lertxundi

2 ***aurreikusitako irabazi*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Finantza-inbertsio baten **aurreikusitako irabazia** irabazia, bere itzulketa garaian espero den balioa da. ETC-entziklopedia

Sektore horretan egunero daude profit warningsedo **aurreikusitako irabazien** beherakadak. ETC-prentsa

Bestalde, Dollek atzo iragarri zuen **aurreikusitako irabaziak** eta sinergiak halako bi lortu dituztela. ETC-prentsa

Ugazaba asko prebentzio legeak urratzen ari direla uste du ELAk:" Denak balio du, obra garaiz bukatzeko eta **aurreikusitako irabaziak** poltsikoratzeko bada". ETC-prentsa

Euskadiko Kutxa, iazko urteari oro har erreparatuta, nahiko gustura gelditu zen emaitzekin, batik bat bere betiko negozioari dagozkienekin, nahiz eta zailtasun dezente izan zuen **aurreikusitako irabazien** muga iristeko. ETC-prentsa

Aldaketa horiek, azkenerako, hark gizarte bakoitzean **aurreikusitako irabaziak** gizarte horien batez besteko ongizatearen arabera jarri dituzte. ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurreikusi ahal (3); **aurreikusi baino** (19); **aurreikusi baitzuen** (3); **aurreikusi behar dira** (4); **aurreikusi bezala** (16); **aurreikusi da** (7); **aurreikusi den** (5); **aurreikusi dira** (3); **aurreikusi diren** (5); **aurreikusi dituzte** (16); **aurreikusi dituzten** (5); **aurreikusi du eusko** (4); **aurreikusi du gobernuak** (3); **aurreikusi duen** (5); **aurreikusi duenez** (7); **aurreikusi dute adituek** (4); **aurreikusi dutenez** (4); **aurreikusi duzue** (5); **aurreikusi egin** (3); **aurreikusi ez** (9); **aurreikusi ezin** (7); **aurreikusi gabeko** (4); **aurreikusi**

genuen (5); **aurreikusi izan** (3); **aurreikusi nahi** (3); **aurreikusi omen** (3); **aurreikusi zen** (10); **aurreikusi ziren** (3); **aurreikusi zitekeen** (7); **aurreikusi zituen** (6)

aurrekontua aurreikusi (3); **aurretik aurreikusi** (3); **batzordeak aurreikusi** (3); **berak aurreikusi** (3); **dela aurreikusi daiteke** (3); **dela aurreikusi du** (9); **dela aurreikusi dute** (12); **dela aurreikusi zuen** (4); **direla aurreikusi du** (8); **direla aurreikusi dute** (8); **dituela aurreikusi du** (6); **dituztela aurreikusi dute** (4); **duela aurreikusi du** (3); **duela aurreikusi dute** (5); **dutela aurreikusi dute** (5); **edo aurreikusi** (3); **egitea aurreikusi dute** (4); **egongo dela aurreikusi** (4); **eraikitzea aurreikusi** (4); **ere aurreikusi** (9); **euro aurreikusi ditu** (3); **euroko inbertsioa aurreikusi** (4); **ez dute aurreikusi** (3); **ez zuten aurreikusi** (4); **ezin da aurreikusi** (5); **gobernuak aurreikusi** (3); **guztiak aurreikusi** (4); **hasiera batean aurreikusi** (3); **haziko dela aurreikusi** (4); **hazkundea aurreikusi** (3); **igoera aurreikusi** (3); **inbertsioa aurreikusi dute** (3); **inork aurreikusi** (4); **iritsiko dela aurreikusi** (4); **izango dela aurreikusi** (11); **izango direla aurreikusi** (3); **izango duela aurreikusi** (6); **izango zuela aurreikusi** (3); **izatea aurreikusi du** (4); **jartzea aurreikusi du** (3); **laguntzak aurreikusi** (3); **legeak aurreikusi** (3); **milioi euro aurreikusi** (4); **murriztea aurreikusi** (3); **nik aurreikusi** (3); **zela aurreikusi zuen** (3); **zela aurreikusi zuten** (3); **zuela aurreikusi zuen** (4); **zuen aurreikusi** (5); **zutela aurreikusi** (4)

aurreikus daitezke (3); **aurreikus zitekeela** (3); **aurreikus zitekeen** (9); **dela aurreikus daiteke** (5); **izango dela aurreikus** (4)

aurreikusia zegoen (4); **aurreikusia zeukan** (3); **aurreikusia zuen** (6); **dago aurreikusia** (4); **ere aurreikusia** (4); **ez zegoen aurreikusia** (4)

aurreikusiak diren (3)

aurreikusita dago (16); **aurreikusita daude** (4); **aurreikusita dauden** (12); **aurreikusita dauka** (5); **aurreikusita duen** (4); **aurreikusita ez** (3); **aurreikusita zegoen bezala** (4); **aurreikusita zeuden** (4); **aurreikusita zeukan** (3); **aurreikusita zuen** (6); **dago aurreikusita** (4); **daude aurreikusita** (6); **direla aurreikusita** (3); **egitea aurreikusita** (5); **urterako aurreikusita** (3)

aurreikusitako diru (3); **aurreikusitako epean** (4); **aurreikusitako helburuak** (5); **aurreikusitako zigorrak** (3); **gobernuak aurreikusitako** (4); **hasieran aurreikusitako** (4); **konstituzioak aurreikusitako** (4); **legeak aurreikusitako** (3)

aurreikusitakoa baino diru (3); **aurreikusitakoa baino gehiago** (3)

aurreikusitakoaren arabera (7)

aurreikustea ezinezkoa (3); **den aurreikustea** (3)

hazkunde hori aurreikusteko (3); **hori aurreikusteko eskatu** (3)

adituek aurreikusten dute (5); **aldaketarik aurreikusten** (7); **amaitzea aurreikusten** (3); **aukera aurreikusten du** (3); **aurreikusten al** (4); **aurreikusten bazuten ere** (3); **aurreikusten den** (7); **aurreikusten diote** (3); **aurreikusten dira** (18); **aurreikusten diren** (9); **aurreikusten dituzte** (3); **aurreikusten dituzten** (3); **aurreikusten du legeak** (3); **aurreikusten du pse** (3); **aurreikusten duela** (3); **aurreikusten duena** (4); **aurreikusten dute adituek** (3); **aurreikusten duten** (4); **aurreikusten duzu** (4); **aurreikusten ez** (8); **aurreikusten zen** (19); **aurreikusten ziren** (4); **aurreikusten zituen** (5); **aurreikusten zitzaion** (3); **aurreikusten zuen** (19); **aurreikusten zuena** (3); **aurreikusten zuten** (14); **berak aurreikusten** (3); **daitekeela aurreikusten** (6); **dela aurreikusten da** (4); **dela aurreikusten du** (9); **dela aurreikusten dute** (4); **direla aurreikusten da** (3); **direla aurreikusten du** (7); **dituela aurreikusten** (4); **dituztela aurreikusten da** (3); **dutela aurreikusten da** (3); **egitea aurreikusten da** (3); **egitea aurreikusten du** (6); **egongo direla aurreikusten** (3); **egotea aurreikusten** (6); **enpresek aurreikusten** (3); **eraikitzea aurreikusten** (4); **eratzea aurreikusten du** (3); **ere aurreikusten** (8); **ez da aurreikusten** (6); **ez du aurreikusten** (10); **ez duela aurreikusten** (5); **ez dutela aurreikusten** (4); **ez nuen aurreikusten** (3); **hartzea aurreikusten du** (3); **haztea aurreikusten** (5); **hustea aurreikusten** (3); **igoera aurreikusten** (4); **irekitzea aurreikusten** (3); **izango dela aurreikusten** (11); **izango direla aurreikusten** (4); **izatea aurreikusten da** (4); **izatea aurreikusten du** (5); **jartzea aurreikusten du** (4); **konstituzioak aurreikusten** (3); **legeak aurreikusten dituen** (5); **legeak aurreikusten duen** (3); **luzea aurreikusten** (3); **neurriak aurreikusten ditu** (6); **nola aurreikusten** (3); **parte hartzea aurreikusten** (4); **partida aurreikusten** (3); **partida gogorra aurreikusten** (3); **planak aurreikusten du** (3); **sortzea aurreikusten du** (9); **uztea aurreikusten** (3); **zela aurreikusten** (3); **zigorra aurreikusten** (4); **zigorrak ezartzea aurreikusten** (3); **zigorrik aurreikusten** (3)

aurreikusterik ez daukan (3); **berotzeak aurreikusterik ez** (3)

---

aurreikusle *iz* aurrez ikusten duena.

Negu betea zen arren, ezusteko bero oldea baliatuz terrazak jarriak zituzten zenbait tabernari **aurreikuslek** eta goizeko zazpi t'erdiak inguruan jada aulkiak ezarri eta gosaltzeko ostatuak irekitzen ari ziren. Harkaitz Cano

Lege hauei buruz ezin da delituen **aurreikusle** direnik esan, delituei beldurra dietela baizik. Juan Martin Elexpuru

Haren herritar bat, erdi **aurreikusle** eta erdi bazternahasle, zenbait urtez bizi izan zen, gerra amaitu ondoren, haren amari kontsolagarrizko berri faltsuak ekartzetik, diru truke. Juan Garzia

---

aurreikusmen *iz* aldez aurretik ikusteko ahalmena.

Printze horren legeetan ikusten da orotara iristen zen **aurreikusmena** zuela, eta dena bere baitan hartzen zuen indarra. Iñaki Iñurrieta

---

aurreikuspen *iz* aurrez ikustea; etorkizunean gertatuko denaz izaten den iritzia, esperientzian oinarritua.

Etorkizunari buruzko **aurreikuspenak** ez dira, beraz, oso itxaropentsuak. Iñaki Heras

Orobat gertatzen da une jakin batean egindako **aurreikuspenetariko** batzuk ikerketaren urrats berri batek gezurtatzea. Juan Garzia

Erran nahi baita, nire lanean ere gutieneko **aurreikuspen** batzuk behar direla, eta **aurreikuspen** horien barnean agorraldia ere sartzen dela. Aingeru Epaltza

Auskalo zer presa, zer zalantza, zer **aurreikuspen** edo zer beldur izango zituen nik ohean biluzik itxoiten nion bitartean soinekoa horren zakar botatzeko. Joxean Agirre

Gertatuko omen denaz **aurreikuspenak** egiten direnean, anitzetan biribilak izaten dira, eztabaida gabekoak, eta horrela gertatzen da gero gertatzen dena. Pello Salaburu

Ezta hurrengoan ere: **aurreikuspen** guztien kontra, HIESaren aurkako elkartean egin genuen afari-merienda hura zaratatsuegia izan zen. Iban Zaldua

Arbolek iraungo badute, basoaren agindua jarraitu behar dute, basoari, ez negu baten edo biren **aurreikuspena**, baizik eta urte askoren, agian mende oso baten batez besteko eguraldi hausnarketa onartu izan baitzaio gizona gizon izan denetik. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko aurreikuspen guztiak (3); **aurreikuspen baikorrak** (4); **aurreikuspen ezkorrak** (4); **aurreikuspen falta** (7); **aurreikuspen guztiak bete** (3); **aurreikuspen guztiak gainditu** (6); **aurreikuspen guztiek** (3); **aurreikuspen guztien arabera** (5); **aurreikuspen hori** (5); **aurreikuspen horiek** (6); **aurreikuspen ilunak** (3); **aurreikuspen okerrenak bete** (3); **aurreikuspen onak** (6); **aurreikuspen planen** (4); **aurreikuspen sistema** (3); **bere aurreikuspen** (3); **da aurreikuspen** (4); **du aurreikuspen** (4); **ere aurreikuspen** (3); **ndfk aurreikuspen** (3); **orain arteko aurreikuspen** (3)

aurreikuspena da (3); **aurreikuspena egiteko** (3); **hazkunde aurreikuspena** (4); **hazkuntza aurreikuspena** (3); **urterako aurreikuspena** (3)

adituen aurreikuspenak (3); **antolatzaileen aurreikuspenak** (4); **aurreikuspenak baino** (4); **aurreikuspenak bete dira** (7); **aurreikuspenak bete egin** (4); **aurreikuspenak bete ziren** (7); **aurreikuspenak bete zituen** (3); **aurreikuspenak betetzen ari** (3); **aurreikuspenak betetzen badira** (6); **aurreikuspenak betez** (6); **aurreikuspenak egiteko** (5); **aurreikuspenak egiten** (4); **aurreikuspenak ere** (6); **aurreikuspenak ez dira** (8); **aurreikuspenak ezkorrak dira** (4); **aurreikuspenak gainditu ditu** (3); **aurreikuspenak gainditu dituela** (3); **aurreikuspenak gaindituz** (3); **aurreikuspenak hobetu** (4); **aurreikuspenak onak** (3); **baina aurreikuspenak** (3); **bere aurreikuspenak** (3); **buruzko aurreikuspenak** (3); **da aurreikuspenak egitea** (3); **donostia aurreikuspenak bete** (3); **egindako aurreikuspenak** (10); **ere aurreikuspenak** (3); **gobernuaren aurreikuspenak** (5); **hasierako aurreikuspenak** (4); **hazkuntza aurreikuspenak** (3); **inguruko aurreikuspenak** (3); **zituen aurreikuspenak** (4)

aurreikuspenaren arabera (3); **gizarte aurreikuspenaren** (3)

aurreikuspenek diote (3); **diote aurreikuspenek** (3)

borondatezko gizarte aurreikuspeneko (3)

egindako aurreikuspenen arabera (5)

borondatezko gizarte aurreikuspenerako (16); **gizarte aurreikuspenerako erakundeak** (3)

aurreikuspenik ez (6); **inolako aurreikuspenik** (3)

---

aurreikuste *iz* aurreikuspena.

Aurreikuste horrek inoiz har al ditzake pentsamenduak berak iritsi ezinak dituen objektuak? Andres Urrutia

Abantaila hauek ditu, bestalde: delitu garrantzitsuak **aurreikustea** eta, ondorioak agerian jarriz eta egileak isilean edukiz, herria beldurtzea. Juan Martin Elexpuru

Hala izanik ere, jokaldiak sistema osoaren gainean du eragina, eta ezinezkoa zaio jokalariari jokaldi horrek ekarriko duen ondorioa zenbaterainokoa izango den **aurreikustea**. Isabel Arrigain

Gutariko bakoitzaren geroko urratsen norabidea **aurreikusteak** ere ez zion lan handirik emanen. Aingeru Epaltza

Zerorrek erreparatutakoen arabera, entseia ezazu zure **aurreikuste** partikularra. Pello Zabala

Herria defendatzeko bi gauza dira beharrezkoak: **aurreikustea** eta hornitzea. Esteban Antxustegi

---

aurreindoeuropar *izond* indoeuroparraren aurrekoa.

Hainbat jakintzatako azken datuek bere jatorri **aurreindoeuroparra** baieztatzen dutela dirudi, euskara Europako hizkuntza komunitate zaharrenetakotzat joz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eta, beraz, europarra izateko lehenengo baldintza bete ahal izango du eta akaso, ondorioz, europar bihurtuko da, horrek **aurreindoeuropar** batentzat inolako garrantzirik balu behintzat. Iban Zaldua

---

aurreiragarpen *iz* behin-behineko iragarpena.

Italia faxistak, bigarren mailako pirata, Albania hartua zuen, eta etortzear zegoen hondamendiaren **aurreiragarpena** ihintzaldi likits baten modura kondentsatzen zen etxeetan eta kaleetan barrena, kontu handiko solasetan eta kontzientzia modorrotuetan. Juan Garzia

Ikuspegi konstruktibistatik, berriz, ekarpen asko eragin ditu, ikuspegi hori hartu dutenen iritzian ikusmenezko ertzek esan nahi lezaketenaz egindako **aurreiragarpen** eta "test" metaketa batean. Josu Zabaleta

---

aurreirakurketa *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* aldez aurreko irakurketa; irakurtzen ikastera bideratzeko jarduera.

Aurreirakurketa hauek normalean fitxategien irakurketa sekuentzialean burutzen dira eta katalogoen irakurketara hedatzen dira. ETC-entziklopedia

Hortaz, **aurreirakurketako** abilezia horietan antzematen diren zailtasunek aukera ematen dute aurrerantzean irakurketa-arazoak izateko arriskua duten haurrak identifikatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aurreiritzi *iz* zerbaiti buruzko iritzi edo ustea, hura ezagutu edo aztertu aurretik sortua. ik**aurrejuzgu**.

Ezin dizut esan oso hurbilekoa egin zitzaidanik haren hitz guztia, baina, zer nahi duzu, bada, **aurreiritziak** iragarritako deabrua ere ez nuen aurkitu. Hasier Etxeberria

Sinestearen aurkako **aurreiritziak** oparo ugaritu dira. Herria

Lekukotza gordinak eman zituen aditzera, **aurreiritzirik** gabe. Karlos Linazasoro

Haren arima matxinoari usadio onak bost, izan ere **aurreiritzirik** gabeko halako giro batean hezia izan baitzen. Patxi Zubizarreta

Hamaika urterekin neba-arrebak, lagunak, asteburuak imajinatzen zizkion, norekin eta zein baldintzatan bizi zen edo antzeko **aurreiritzi** barik. Urtzi Urrutikoeetxea

Aurreiritziz beterik sentiarazi ninduen. Alberto Barandiaren

Zientzia-gizonak inolako **aurreiritzirik** gabe jarri behar du frogen aitzinean. Alberto Ladron Arana

Malenek han eta hemen entzuten zituen abestiak, eta **aurreiritzirik** gabe errepikatzen zituen. Lander Garro

Begirada gainean paratu zidanean eutsi egin nion, inoiz ez bezala, dena galdu eta **aurreiritzirik** gabe bizitza zerotik hasten duenaren antzera. Eider Rodriguez

Aurreiritzirik gabe, eta aukera guztiak aintzat hartuz egin beharreko gogoeta dela ere azpimarratzen du. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurreiritzi asko** (8); **aurreiritzi bat da** (3); **aurreiritzi guztiak** (6); **aurreiritzi hori** (4); **aurreiritzi horiek** (6); **aurreiritzi ideologiko** (3); **beren aurreiritzi** (3); **da aurreiritzi** (4)
> **aurkako aurreiritziak** (4); **aurreiritziak bazter** (3); **aurreiritziak eta beldurrak** (3); **aurreiritziak gainditzeko** (6); **dauden aurreiritziak** (3); **gizartearen aurreiritziak** (3)
> **aurreiritziei aurre** (3)
> **aurreiritzien aurka** (3); **aurreiritzien gainetik** (3)
> **aurreiritzirik gabeko** (7); **dut inolako aurreiritzirik** (4); **ez dut aurreiritzirik** (3); **inolako aurreiritzirik gabe** (4)

---

aurreirudi *iz* behin-behineko irudia.

Israelen gertaerak **aurreirudi** kristauentzat. Elizen arteko biblia

---

aurreirudikatu, aurreirudika, aurreirudikatzen du *ad* behin-behinean irudikatu.

Horrela, ez zen Frantzisko bera zentzumenezko gauzetatik adimenezkoetara eta txikienetatik handienetara mailaz maila igaro bakarrik, baizik eta kanpoko ekintza materialek Frantziskok etorkizunean egingo zuena **aurreirudikatzen** zuten modu misteriotsuan. Askoren artean

---

aurreizate *iz* aldez aurreko izatea.

Aurreizate, iz. Kreazioan kontuan hartzen ez den faktorea. Xabier Olarra

---

aurrejakintza *iz* aldez aurreko jakintza.

Zizeronek gizakiaren askatasuna salbatzearren **aurrejakintza** jainkozkoa baztertu bazuen ere, Agustinek bata eta bestea bateragarri direla uste du. Imanol Unzurrunzaga

Hipotesi orokor honetara kapitulu honen hirugarren zatian itzuliko gara berriro; oraingoz gogora dezagun denboran gertatzen ez den irudian ere badela denbora, ikuslea irudiaren sorkuntzaz, filmologoek dioten bezala, irudiaren sorkuntza-denboraz, **aurrejakintza** bat eskatzen duen apailu batean egoki sartzen baldin bada behintzat. Josu Zabaleta

---

aurrejubilatu, aurrejubila, aurrejubilatzen da *ad* berez dagokion adinean baino lehenago erretiroa hartzea.

Berdin jasoko dute Navaleko 570 **aurrejubilatuek** ere. Berria - Ekonomia

Gehienek Basaurin jarraituko dute, batzuek Reinosaraino joan beharko dute, eta zortedunak **aurrejubilatu** egingo dituzte. Urtzi Urrutikoeetxea

Badira zazpi urte Joakin **aurrejubilatu** zutenetik, eta oraindik ez da ohitu hipermerkatu erraldoi horretako girora. Iban Zaldua

Berrogeita hamazazpitik gorakoak **aurrejubilatuko** dituzte, eta gainerakoak kalera. Jon Alonso

---

aurrejubilazio *iz* berez dagokion adinean baino lehenago hartutako erretiroa. ik**jubilazio**; **erretiro**

Benito Uterga LABeko batzordekideak jakinarazi du, zeharkako eskulanen kostuak jada adostutako **aurrejubilazioen** bidez gutxituko direla. Berria - Ekonomia

Honek **aurrejubilazioa** eskatu zuela, bestea hil egin zela, hura tailer berrietara bidali zutela. Paddy Rekalde

Irujoren aburuz, **aurrejubilazioaren** gisako neurriak ez dira onuragarriak. Berria - Euskal Herria

---

aurrejuzgu *(ETCn **153** agerraldi, horietatik **78** azken sei urteetan; orobat **aurrejuzku**)* *iz* zerbaiti buruzko juzgua, hura ezagutu edo aztertu aurretik egina. ik **aurreiritzi**.

Emakumea ere alaitu da, **aurrejuzgurik** gabe. Monika Etxebarria

Hasiera batean beste euskaldun askori bezala gertatzen zitzaidan niri, onartu egiten nuela galderak berarekin zekarren **aurrejuzgua**, euskal literaturaren singularitasunari buruzkoa. Bernardo Atxaga

Babeslearen eta **aurrejuzgu** gabearen itxura hartu zuten segituan mutilek. Josu Zabaleta

Batetik, Zuzenbidetik kanpoko **aurrejuzguetan** oinarritutako epaiketa irekitzearena, non pertsonen errespontsabilitateaz haratago taldeak epaituko liratekeen eta guztia erruduntasunean oinarrituta. Berria - Euskal Herria

---

aurrejuzku ik **aurrejuzgu**.

---

aurrekalde ik **aurrealde**.

---

aurrekanpaina *(ETCn **52** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **kanpainaurre** agertzen da)* *iz* kanpaina ofiziala hasi aurreko kanpaina. ik **kanpainaurre**.

Estatutuaren erreforma egiteko aurkeztu berri duten proiektuarekin hurrengo urtean egingo diren hauteskunde autonomikoen **aurrekanpainari** ekin diote dagoeneko abertzaleek. Berria - Mundua

Kontuan hartu behar da **aurrekanpaina** eta kanpaina mediatizatu egin dela gure aulkia Aralarren alde gal zitekeela zioen inkesta batekin. Berria - Euskal Herria

---

aurrekanporaketa *iz* kaporaketa baten aurrekoa.

Txapelketa nagusiek elkarren artean zerikusirik ez dutela kontuan hartuta ere, ez ote da ezohikoa azken bi txapeldunak elkarren kontra eta non eta **aurrekanporaketa** batean aritu beharra? Berria - Kirola

"Zuek biok **aurrekanporaketa** jokatu behar duzue. Berria - Kirola

Ekainaren 11n Urepelen arratsaldeko 4etan, **aurrekanporaketa**: Gazte/Helduetan: Araba / Ipar Euskal Herria. Herria

---

aurrekari 1 *iz* aipatzen den egite edo gertakariaren aurretik jazoriko antzeko egite edo gertakaria; aitzindaria, norbaiti edo zerbaiti bide egiten dion pertsona edo gauza.

Segadaren batean erori den hiruzpalautan, traizioak berak baino gehiago amorrarazi du **aurrekariak**, traidorearen hitzei koipekeriatik haratagoko ezer susmagarririk ez antzeman izanak. Anjel Lertxundi

Jendea ondo ohartzen da nire kasua **aurrekari** arriskutsua eta larria dela. Berria - Euskal Herria

-Aurrekaririk ez duela esan nahi nuen. Fernando Morillo

Ez da mintzamena, baizik eta haren **aurrekaria**. egidan, nire mortifikaziorako, berak beti izan zaituela nahiago berresteko balio zuten **aurrekari** bila hasi nintzen, manito, hirurok elkarrekin igaro ditugun uneak patetikoki distortsionatuz eta, nire kalterako, gu bion arteko konparazio morbosoak eginez. Berria - Gaiak

Aitzitik, behin **aurrekaria** jarriz gero, jazoera ondoren halabeharrez ez baletor, orduan jazoera hori gure itxurapenen jolas soil bat bailitzan hartu beharko genuke. Ibon Uribarri

2 *iz* (batez ere puralean) zerbaiten aurretik gertatu den gauza, hura nolabait azaltzen duena edo haren kausa edo eragiletzat har daitekeena.

Alta, eta **aurrekariak** ikusirik, txetxeniarren parte hartzea frogatu edo ez, Kremlinak hala erabakiko balu, Aurretik izan diren **aurrekari** zabal horiek, bestalde, inoiz ez dira neutro izan. Berria - Mundua

-Aurrekaririk ez duela esan nahi nuen. Fernando Morillo

Badakizu: kontuz ibili **aurrekariak** sortzearekin. Koldo Biguri

Aurrekariak aurrekari, aurreikusitako bira egiten jarraituko dutela adierazi dute. Berria - Kultura

Lerradurak gertatzen badira, presaz haratago dauden herrietan **aurrekaririk** gabeko hondamendia izanen da. Edurne Elizondo

Aurrekari horiek kontuan hartuta, erakundean 1969ko erorikoaz geroztik sortu diren joera desberdinak ere azaldu dizkiozu. Rafa Egiguren

Aurrekari hauek guztiak azaldurik, iritsi da nire eskaera zehatza egiteko unea, zeina izango baita, eta, uste dudanez, ustekabean harrapatuko ez baitzaitu. Jon Alonso

3 *iz pl* zigor-aurrekariak. ik **aurrekari 6**; **zigor**.

Han zeukatean, den-dena, nire **aurrekarien** kondena-agiritegian. Mirentxu Larrañaga

Gertaera haien harira hedabideek argitaratutako informazioaren arabera, lehenago ere **aurrekariak** zituen erasotzaileak. Iñigo Aranbarri

4 *iz* norbaiten osasun egoeran eragina duen aurretiko gertakaria, norberarena edo familiakoa.

Hasteko, ginekologoak datuak hartzen dizkizu, eta zure historia egiten: adina, garaiera, pisua, aurretik izandako gaixotasunak eta egungoak; familiako **aurrekariak**. Luis Elberdin

Poliposis uterina ageri zen gaixoaren **aurrekarietan**. Imanol Zurutuza

Alergia **aurrekariak** zituzten sendietan jaiotako 865 haurri jarraipena egin zieten Municheko ikertzailek. Berria - Gaiak

Gaixoaren osasun **aurrekariak** ere aintzat hartu behar dira. Berria - Gaiak

5 *iz* lege-auzi jakin batean harturiko erabakiak ezartzen duen arau edo jarraibidea, antzeko auzien epaietan aintzat hartu beharrekoa edo bete beharrekoa izango dena.

Baina Anshelek **aurrekariak** aipatu zituen, Legeak ez zuela halakorik debekatzen frogatzeko. Koro Navarro

Horretarako, kasuko **aurrekariak** kontuan hartzeko eskatu dio. Berria - Euskal Herria

Dauden **aurrekariak** aintzat hartuz, dena den, ia ezinezkoa izango da epailearen erabakia atzera botatzea. Berria - Mundua

Aurrekariak ezartzeko moduko epaia izan al da? Berria - Mundua

6 ***aurrekari penal*** *pl* zigor-aurrekariak. ik **zigor**.

Hedabideei adierazitakoa bakarrik esan diete udaltzainei, identifikatu eta araketa prebentiboak egin behar dizkietela **aurrekari penalak** dituztenei edo armak eramateaz susmagarri diren guztiei. Berria - Euskal Herria

Gehienetan bi urte baino gutxiagoko zigorra ezartzen zaizkie eta, beraz, gizonak ez badu **aurrekari penalik** kalean uzten dute. Berria - Harian

Mendebaldeko demokrazia gehienetan, **aurrekari penalengatik** zigorra bete dutenek bozkatzeko eskubidea daukate. Berria - Mundua

7 ***zigor-aurrekari*** *pl* pertsona batek epai irmo bidezko kondenaren bat izatea; kondena horiek jasotzen diren agiri ofiziala. ik **aurrekari 6**.

Langile atzerritarrei sorterriko **zigor aurrekarien** agiria eskatzen diete, besteak beste, euren egoera legeztatzeko. Berria - Harian

Mexikotik lortu beharreko **zigor aurrekariak** eta gainerako agiriak Bartzelonako kontsulatuan eskatu behar izan zituen. Berria - Harian

---

aurrekin ik **aurrekari**; **aurrerapen**.

---

aurreklasiko *(corpusean ez dago; ETCn **56** agerraldi)* **1** *izond* aro klasikoaren aurrekoa.

Garai **aurreklasikoan** gaude, historikoki bezala, epistemologikoki ere. ETC-literatura, saiakera

Laute jole izateaz gainera, ongi asko ezagutzen du musika **aurreklasikoa**, eta hainbat sari eskuratu ditu alor honetan eginiko ikerketa lanagatik. ETC-prentsa

Errepideak K.a. lehen milurtekoak dira, maien inperio **aurreklasikoaren** gainbehera. ETC-prentsa

Hasteko, Krausen sinfonian, estilo **aurreklasikoa** nabarmendu zen, barroko moldeak estalirik, idazkera zakar baten harian. ETC-prentsa

Komisarioaren ustez, Txillidak ere" lengoaia pertsonal bat" sortu zuen, bere kasuan, baina Euskal Herriko edo Grezia **aurreklasikoko** tradizioak, zientzia eta musika elkartuz. ETC-prentsa

Greziar **aurreklasikoentzat** -Homeroren obran ikus daitekeenez- Edertasuna naturala zein gizakiak egindako objektu batena zen, definizio argirik ez zuen arren. ETC-entziklopedia

2 *Aro Aurreklasiko* *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

Aro Aurreklasikoa K.a. 2500etik 200eraino hedatzen den garaia da Amerikako historian, oro har lehen Erdialdeko Amerikako zeramika egin izanaren data probabletik hasi eta Cuicuilcoren erorketa amaitu eta Teotihuacan loratzen hasten den arte. ETC-entziklopedia

Hiri hau **Aro Aurreklasikoan** dagoeneko existitzen zen. VI. mende hasieran, Calakmul eskualde-indar handia zen dagoeneko. ETC-entziklopedia

Hemen hizketan ari garen artean, baten bat, Pas de Basque dantzan egiten ari da munduko lekuren batean", eta "mundu osoari" erakutsi nahi dio Urbeltzek pauso hor **aro aurreklasikoan** sortu zela, balet klasikoan erabili aurretik, eta hementxe bertan, gure dantzetan. ETC-prentsa

---

aurreko **1** *izond* lekuaz edo denboraz mintzatuz, aurrean edo aurretik dena edo dagoena.

Gauzak ez zirela gehiago **aurreko** lau hilabeteetan bezalakoak izaten. Hasier Etxeberria

Zerrizainak okela errea atera zuen, **aurreko** egunean jan gabe utzitakoa; ogia eta ardoa ere ipini zituen. Juan Kruz Igerabide

-Ez dut konprenitzen, andereño; **aurreko** astean ondo neukan... Ez dut konprenitzen... Jesus Mari Mendizabal

Ez ninduten **aurreko** galeriatik eroan, epaileak bere marrazkiak egin beharko zituen oraindino, ezer ukitu barik utzi gura izango zuten. Koldo Izagirre

Aurreko horman marrazki bat dago markoan sartuta. Pako Aristi

Eta ezinbestez, elizatik gertu, **aurrekoan** edaten egondako taberna ikusi eta berriro sartu zen bertan. Matías Mujika

Aurreko alkateak baimena eman zion korridoreetan eta balkoietan lorontzi handi batzuk paratzeko, eta halaxe egin zuen Florenek. Eider Rodriguez

Bere burutzarra makurtzen du **aurreko** hanken gainera, eta eraikina gainbehera dator oso-osorik. Eskarne Mujika

Aurreko guztiak ez zuela fitsik balio erabaki nuen berriro, liburu zuria, lerro bat eta beste bat, emakume hark hutsetik izkiriatzeko prest zegoen liburu garbia izan nahi nuela, alegia, beste edozeren gainetik. Hasier Etxeberria

Meatzetan dagoen zereginik esker txarrekoena: **aurrekoek** egindako zuloak betetzea zen haren lana. Harkaitz Cano

Emazkidazu sei ale, noiznahikoak, mende honetakoak edo **aurrekoak**. Antton Olano

2 *iz* (batez ere pluralean) norbaiten gurasoa, gurasoen gurasoa edo arbasoa.

Apez-konkistadoreek beren **aurrekoak** konbertitu zituztelarik, europar izenak "eskaini" zizkieten bataio egunean. Ramuntxo Etxeberri

Misterio zulagaitza izan ohi da denontzat ere gure **aurrekoak** gazte eta sasoiko imajinatzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Ametsetan, bere **aurrekoak** azkonar bila zuloetan barna zebiltzan garaietara itzuliko zen, beharbada. Gotzon Garate

Zorionekoa, zeure **aurrekoen** erreinura itzuli eta beraien errege-aulkian eseri zareneko eguna! Elizen arteko biblia

3 *aldez aurreko* *izond* aldez aurretik zertzen dena.

Eta enpresa askotan **aldez aurreko** erretiroak onartzen dira, diru kopuru handiak emanda, eta erretiroa hartutako asko lanean hasten da hurrengo egunean. Iñaki Heras

Ez zenuen **aldez aurreko** asmorik, eta hala ere gure etxean zaude orain. Oskar Arana

Horretarako **aldez aurreko** lana egin behar da: mahai horren metodologia eta bestelakoak zehaztu behar dira, eta ezin dugu denbora alferrik pasatzen utzi. Berria - Harian

Bertsolariak **aldez aurreko** lanaren bidez ekin ahal izango dio beti muga honi. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

4 *aurreko alde* ik **aurrealde**.

Horretarako, baina, etxe osoa zeharkatu beharko nuen, nengoen bulegoa etxearen **aurreko aldean** baitzen. Alberto Ladron Arana

Aurreko aldean eserarazi ninduten eta Dorothy atzeko aldean. Fernando Rey

Laugarrena, merkatu **aurreko aldea**, Salazar ibilbidea, ring-etik hogei metrora. Berria - Kultura

Itsasoko Gurutze Gorriaren kanoa gorri-beltz zaratatsua **aurreko aldetik** agertzean, azkartu egin da begiraleon artean itxarotearen dramatismoa. Txillardegi

Ni sartu nintzen oraingoan **aurreko aldean**. Jon Muñoz

Atzo izan zen medikuarenean eta espero baino larriagoa izan da erresonantziaren emaitza: ezker belaunaren **aurreko aldeko** lotailu gurutzatua eta barne meniskoa ditu apurtuta triada famatua. Berria - Kirola

Soineko merkez jantzitako eta kolore biziz makillatutako emakume lodi batzuek, **aurreko aldean** jarririk, jakien prezioez hizketan ziharduten. Iñaki Zabaleta

Buruaren **aurreko aldean** zegoen tumorea. Imanol Zurutuza

5 *aurreko batean* *adlag* aurreko aldi batean.

Eta ez al zien esan **aurreko batean** pare bat hilabetez Gara egunkarian hartu behar zutela praktiketan? Jokin Muñoz

Aurreko batean eztabaidan aritu ginen guraso batzuk, eta jakin nahi nuke zuek erretzen duzuen edo ez. Joxerra Garzia

Baina Teresak, **aurreko batean** aipatu nizun neskak, zuenaz beste egin, eta historia berri bati ekiteko gomendatzen dio. Patxi Zubizarreta

Frantziako telebista batekoak etorri omen zitzaizkion **aurreko batean**, entrebista bat egiteko aitzakian. Joxerra Garzia

Aurreko batean janariak bezala, pertsonak hasi zitzaizkion buruan zurrunbiloka mugitzen. Bernardo Atxaga

6 *aurreko burmuin* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ados bazaude pertsona guztiek ezkerreko burmuineko gogo bat eta eskuineko burmuineko gogo bat badutela, orduan ados egon behar duzu pertsona guztiek badutela **aurreko burmuineko** gogoa eta atzeko burmuineko gogoa! ETC-literatura, saiakera

7 *aurreko garun*

Aurreko garuna, berriz, berrikiago garatua, oroimenaz, emozioez eta zentzumenekin loturiko pentsamendu eta sentimendu landuez arduratzen da. Irene Aldasoro

8 *aurreko gorputzadar* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Beste batzuek, berriz, luma luzeak ageri dituzte, **aurreko gorputzadarretan** eta isatsean, egungo hegaztien oso antzera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurreko gorputzadarrak : sorbalda luzea du, lapranera jotzen duena, horizontalarekiko nahiko makurtua. ETC-entziklopedia

9 ***aurreko hagin*** *(corpusean ez dago; ETCn **37** agerraldi)*

Esne hortzeria haurtzaroan ateratzen da eta 8-10 urterekin erortzen da. 20 atalek osatzen dute: 4 ebakortz, 2 letagin, eta 4 **aurreko hagin** , hortz lerro bakoitzean. ETC-entziklopedia

Animalia hauek ebakortz, letagin, **aurreko hagin** eta haginak dituzte. Hortzeri-formula idazteko eran bi koadro egiten dira, goiko eta beheko aldean. Barail-erdi bakoitzean dauden ebakortz, letagin, **aurreko hagin** eta haginak jartzen dira. ETC-entziklopedia

Goiko eta beheko masailezurretako atzeko eta **aurreko haginak** homo sapiensarenak dira. ETC-prentsa

Masailezurra ere egoera onean dago, letaginak eta **aurreko haginak** garbi-garbi ikusten dira. ETC-prentsa

Beti izan du zulotxo hori **aurreko haginen** artean. ETC-literatura, saiakera

Barre egin du aho zabalka eta goiko masailezurrean atzeko eta **aurreko haginak** falta dituela ohartu da Abaitua. ETC-literatura, saiakera

Aitagurea errezatzen zuen moduan oroitu du bakoitzaren leku-izena: zentralak, lateralak, **aurreko haginak** eta molarrak. ETC-literatura, saiakera

Batetik, hortzak zurituak diruditela eta ez diola ikusten amalgama bat lehen oso agerian zuena; goiko barailan, ezker aldera, letagin bat eta **aurreko hagina** hartzen zituela du gogoan. ETC-literatura, saiakera

10 ***aurreko mantal*** sukaldean-eta, gorputzaren aurreko aldea babesteko, gainerako jantzien gainean ezartzen den jantzia.

Eskuak **aurreko mantalean** lehortu zituen. Ramon Saizarbitoria

Ama sukaldean ari zen, **aurreko mantal** zuri bat jantzita, arrautzak jotzen. Anjel Lertxundi

Sukalderaino joan, **aurreko mantal** txiki bat bere gerri oparoan lotu eta nik garbitu berri nuen harraskako ontziteria garbitzen hasi zen berriro. Anjel Lertxundi

Aurreko mantalaren ertzaz, berak bakarrik ikusten dituen hauts-arrastoak kentzen ditu markotik eta kristaletik. eskua **aurreko mantaleraino** jaitsi eta hasiera eman zion emaro-emaro dena estaltzen joan zen isiltasunari. Anjel Lertxundi

Sukalde-komunetatik zetorrek kiratsak atzera eragin bazion ere, **aurreko mantala** jantzi, eta ontzi, harraska, zoru, komunak garbitzen hasi zen... Anjel Lertxundi

-Libertariotik izena honek ere! -esan zuen Karmenek harenganako lilura galdurik bezala, lan-jantziaren goialdeko **aurreko mantala** lotuz-. Inazio Mujika Iraola

11 ***aurreko panel*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Behatzarekin autobusaren **aurreko panela** seinalatu du, esandakoa frogatzeko keinu bat eginez: 136 kilometro egin ditu ibilgailuak, eta oraindik bateriaren %46 geratzen zaio. ETC-prentsa

Gameluak helmugara iristean, eta emaitza ikustean, Arturok, ernegatuta, ukabilkada eman dio **aurreko panelari** , sekulako zarata eginez. ETC-literatura, saiakera

Aurreko paneleko tiketa. ETC-literatura, saiakera

12 ***aurreko trakzio*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Aurreko trakzioa (ingelesezko laburdura "FWD", Front Wheel Drive), ibilgailuetan motorraren indar-parearen mugimendua aurreko gurpilen ardatzera transmititzen den sistema da. ETC-entziklopedia

Horrez gainera, trakzioari dagokionez ere bi aukera eskaintzen ditu: **aurreko trakzioa** edo lau gurpileko trakzioa. ETC-prentsa

Ordurako, kasko bakarreko karrozeria zeukan; **aurreko trakzioa** , lau zilindroko motorra, balbulak kulatan jarrita, balazta hidraulikoak, gurpilekiko esekidura independenteak... ETC-prentsa

Gero, Renault negargarri batzuk ekarri zituzten, **aurreko trakzioarekin** . ETC-prentsa

Irailaren 6an abiatu zen Franc-Tireur-eko kazetari gisa, makisean ibilitako bikote gazte batekin, Leconte senar-emazteekin, **aurreko trakzioko** eta RN 6283 matrikulako Citroën 11 beltz batean, autoaren atzealdean Franc-Tireur txartel zuria jarrita. ETC-literatura, saiakera

13 ***aurreko txandan***

Aurreko txandan bezala, zuek mendi barrenean bildurik zeundetela Jaunak suaren erditik adierazi zizkizuen hamar aginduak idatzi zituen harlosa berrietan eta niri eman zizkidan. Elizen arteko biblia

-Goazen -esan zidan Bartolomek, eta halaxe ulertu nuen **aurreko txandan** egin zuen gauza bera egiten ari zela; ez geneukan zertan kezkatu. Edorta Jimenez

-Zer moduz da zuen aita zaharra, **aurreko txandan** aipatu zenidatena? Jose Antonio Mujika

Izerdi patsetan esnatu nintzen, eta bat-batean hartu nuen Marroren etxeordeko ganbaratxoa hobeto miatzeko deliberoa, ea **aurreko txandan** topatu ez nuena topatzen nuen. Juan Kruz Igerabide

Aurreko txandan , Orixeren "desprezioak" entenitzen saiatu gabe eskandalotzat hartu dituen herri baten mixeria aipatzen nuen. Patziku Perurena

Beharbada, Tampicoko aireportua txikiegia zen gure Super-Constellation-arentzat (**aurreko txandan** , DC-4 batean joana nintzen), edota agindua hartua zuten, motorra matxuratu arren, Mexico-Cityrantz jarraitzeko. Joxe Austin Arrieta

14 ***aurrekoan*** *adlag* aurreko aldian.

Gau hartan **aurrekoan** baino hobeto egin zuen lo. Migel Angel Mintegi

Aurrekoan baino ozenago entzun dut orain ama... eta bera ere bai, zera... Iñaki Mendiguren

Aurrekoan aipatu zenidan behin sagar betekada bat izan zenuela eta harrezkero ezin dituzula ikusi ere egin. Patxi Zubizarreta

Sekta horretako bati entzuten nion **aurrekoan** irratiz, eta zera zioen: klonazioaren bidez gizakiak hilezkortasuna lortuko duela aurki. Joxerra Garzia

-Aurrekoan ume puta batzuk zitunan putetxera joan zirelako eta, ustean, zerbait egin zutelako -Alaznek begirada jaitsi zuen, damututa bezala. Fernando Morillo

Aurrekoan ez nintzen ezer eskaintzeaz akordatu. Edorta Jimenez

15 ***aurrekoz*** *adlag*

Aurrekoz ageri da Ama Birjina; umea,berriz, lotan dago amaren altzoan, zapi zuri batean bilduta. Berria - Kultura

16 ***aurrekoz atzera*** *adlag*

Eta gero komunikazio bulegora pozik sartu, aulkia **aurrekoz** atzera jarrita eseri eta esan zuen. Fernando Rey

-Elizkizun batean, omenaldi batean, agurra egiterako orduan... nahi beste astia izango du bertsoa **aurrekoz** atzera eta atzekoz aurrera pentsatzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ezin ahaztu, alabaina, hizkuntz unitate bat osatzen duten elementuak beste hurrenkera batean ordenatzeko eskueran ditugun aukeretako bat baino ez dela **aurrekoz** atzera zegoena atzekoz aurrera jartzea. Iñaki Arranz

17 ***aurrez aurreko***

Eta honako **aurrez aurreko** figura lausoa, beraren betileetako euriaren atzean. Juan Garzia

Disimuluz, oharkabean bezala, mahaiaren beste aldera joan naiz eta **aurrez aurreko** aulkia hartu dut. Iñaki Zabaleta

Gizon askok erabiltzen dute indar fisikoa eta **aurrez aurreko** liskarra beren arazoak konpontzeko, eta horietako askok emakumeekin ere berdin jokatzen dute, batez ere bikotekidearekin. Luis Elberdin

Ostatua ibaiaren ertzetik bertan samar zegoen, Barrière du Roule-ren **aurrez aurreko** aldean. Koro Navarro

Behin bakarrik ikusten ditu, **aurrez aurreko** saioan. Juan Martin Elexpuru

Atzo herenegun, epaileak afera hau bi interesen arteko **aurrez aurreko** klasikotzat jo zuen: prentsaren askatasuna, alde batetik, eta gobernuak herritarrak zigortzeko duen ahalmena, bestetik. Berria - Gaiak

1971ko lan honek kirol-prakak janzten dituzten oinezkoak erakusten ditu, egoera dibertigarri ugariak sorrarazi **aurrez aurreko** ibilbideek topo egiten dutenean. Berria - Kultura

Ez erabat haren oinean, bestela ez baitzion erreparatuko iparraldeko fatxadaren goialdean - beraren **aurrez aurreko** fatxadan, alegia - eraikin multzo batek egiten zuen isla harrigarriari. Jon Muñoz

Berak, artikulu hartan, garapen teknologikoaren ondorengo lau ondorio hauek aurreratu zituen: Sedentarismoa eta **aurrez aurreko** harreman pertsonalen gainbehera.

Txema Ramirez de la Piscina

Aurrez aurreko eserleku doble gehienak erdi hutsik zeuden. Anjel Lertxundi

Ageriko zen dena, ezkutuko bihurtu zen; galdeketak, argiketak, frogaketak, **aurrez aurrekoak** , alderdi publikoaren konklusioak; eta horixe da egungo jardunbidea. Iñaki Iñurrieta

Ez zen ezer berezirik gertatu; soilik bi mujik errusiarrek, ostatuaren **aurrez aurreko** tabernako atean baitzeuden, zertxobait esan zuten kotxeaz, hitz-erdirik ez, ordea, barruan zihoanaz. Jose Morales

Azken korridorean zain geratzen gara, **aurrez aurrekoaren** gela txikiaren atarian. Lander Garro

Linterna txiki bat hartu zuen sorbaldan dingilizka ekarritako zakutotik eta ezker-eskumako izpi mugimendu arina burutu zuen **aurrez aurreko** paretan. Josu Landa

18 *bide-aurreko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Eskutik **bide-aurreko** zeramatzaten zakurrak etengabe gelditzen zitzaizkien harlauzak usnatzen, aurreko bizialdiren batean galdutako hezurren bila beharbada, mende askotako historia baitzegoen harri horien azpian. ETC-literatura, saiakera

Bestalde, jazz-a, aldi berean blues-etik datorrena, rap-aren beste **bide-aurreko** aitortu bat da. ETC-entziklopedia

19 *ezkon aurreko* *(orobat **ezkonaurreko** eta **ezkontaurreko**)*

- **Ezkon aurreko** astean. Ander Irizar

Azkeneko eskutitza **ezkon aurreko** arratsaldekoa da. Ander Irizar

Horra zer izan ziren **ezkon aurreko** haien atseginak. Juan Garzia

-Eta bere **ezkonaurreko** abizena. Joxe Austin Arrieta

Greziako zenbait herritan, non oso altua baita gaitz horren eroalde heterozigotoen maiztasuna, eta ezkontzak konponduak baitira oraindik askotan, saiatu dira **ezkontaurreko** diagnostiko isilpekoak-edo egiten eta heterozigotoen arteko ezkontzak eragozten. Juan Garzia

20 *ezkondu aurreko agur* *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)*

Derbia aukeratua zuten lagunek **ezkondu aurreko agurra** egiteko, eta horixe zuen mandatua: hiriko jai-giroan, zuriz jantzita egotea. ETC-prentsa

Ikastetxeak, **ezkondu aurreko agurrak**, multzo handiak, abenturaz gozatu nahi dutenak... ETC-prentsa

Ezkondu aurreko agurrak ere antolatzen dituzte: "Arlo horretan agentzia bat bezala funtzionatzen dugu". ETC-prentsa

Horretarako, zinemaz gain mota askotako lanak egiten dituzte: "Olentzeroak, **ezkondu aurreko agurrerako** panpinak, mozorroak... eskatzen diguten guztia onartzen dugu normalean", dio Iñigok. ETC-prentsa

"Lagun baten **ezkondu aurreko agurra** antolatu behar genuen, eta, ohiko bazkari eta jaiaz gain, zerbait bereziagoa egin nahi genuen", azaldu du. ETC-prentsa

21 *ezkondu aurreko agur-afari* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ezkondu aurreko agur-afari baterako al dira? ETC-literatura, saiakera

Komisariako lankide baten **ezkondu aurreko agur-afaria** ospatzen ari ziren, eta afaldu ondoren, baten bati bururatu zitzaion fama txarreko lokal hartara joatea, bertako dantzariak Pragako ikusgarrienetarikoak omen zirelako. ETC-literatura, saiakera

Arrasateko neska kuadrilla bat Eibarren **ezkondu aurreko agur-afaria**n. ETC-prentsa

22 *ezkondu aurreko agur-festa* *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Oraingoz, nire biografiako itsaso konbentzionaletan nabigatzen dut: udaldiak, aldi baterako lanak, ikastaroak, **ezkondu aurreko agur-festak** , itxarongelak, museoetako bisitak. ETC-literatura, saiakera

Logela hartu dudan ostatuan hogei bat laguneko kuadrilla dago, **ezkondu aurreko agur-festan** -esan zuen horrekin dena azalduko balu bezala. ETC-literatura, saiakera

Baina hara non, **ezkondu aurreko agur festa** batean tartatik ateratzen den emaztegaiarena egiten ari dela, senargaiaz maitemintzen den. ETC-literatura, saiakera

Angel Azul enpresan lan egiten du eta, dantza erotikoak ez ezik, **ezkondu aurreko agur festetarako** ikuskizunak antolatzen dituzte. ETC-prentsa

Ezkondu aurreko agur festa egiten ari ziren bi talde ere bai. ETC-prentsa

Lehen, **ezkondu aurreko agur festak** egin ohi ziren Jaca inguruetan; baina, azkenaldian, haur txikiak dituzten gero eta familia gehiago biltzen direla sumatzen ari gara. ETC-prentsa

Jai horiekin eta **ezkondu aurreko agur festekin** betetzen dugu urtea. ETC-prentsa

Ezkondu aurreko agur festetan , noiz edo noiz hamar lagun etorri izan dira, surfean batek bakarrik jakin arren, eta ez dute irakaslerik kontratatzen. ETC-prentsa

23 *ezkondu aurreko harreman* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Ezkondu aurreko harremanak edo ezkondu aurreko sexu-harremanak ezkondu aurretik bi pertsonak dituzten sexu-harreman eta praktiken multzoa da. ETC-entziklopedia

Familia, abortua, dibortzioa, **ezkondu aurreko harreman** sexualak... halako gauzekin dago kezkatuta gaur egungo Eliza ofiziala. ETC-prentsa

Sexu-harremanei gazteagotan ekiten zitzaien, **ezkondu aurreko harremanak** orokortu ziren, izatezko eta eskubidezko bikoteen konpromisoak agertu ziren... ETC-zientzia, zuzenbidea

24 *final aurreko* ik **finalaurreko**.

25 *garaiz aurreko erditze*

Bi dira helburu nagusiak: haurra izateko unean gutxieneko osasun baldintzak betetzen direla bermatzeko sistemak zehaztea, eta **garaiz aurreko erditzeak** eta erditze arriskutsuak denboraz zelan atzeman daitezkeen erakustea eta haietarako prestatzea. Berria - Gaiak

26 *gona-aurreko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Lehengo batean, Ernio tontorreko gurutzada goragalegilera bidean, etxe baten aldamenean harro ageri zen zurzuri bat, Frantzia-haizearen zirimolekin porrusalda dantzan, **gona aurreko** eta azpiko ezin zuriagoak erakusten. ETC-prentsa

Haizeak Karmenen **gona-aurrekoa** altxatzen zuen bakoitzean, Bertak begietara sartzen zitzaizkion kopetako ile-xerloak alboratzen zituen. ETC-literatura, saiakera

27 *herenegun aurreko*

Herenegun aurreko urteetan baino ikusmin handiagoa zegoen; izan ere, BNG Bloke Nazionalista Galiziarra alderdiko bozeramaile Anxo Quintana estreinakoz mintzatu zen bere abizena daraman plazan. Berria - Mundua

Nire aita **herenegun aurrekoan** hil zen, eta ez dut beste familiakiderik. Elena Touyarou

28 *hilekoaren aurreko sindrome* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Hilekoaren aurreko sindromea sendatzeko tratamendua ere badu lore esentzien terapiak. ETC-prentsa

Hilekoaren inguruan agertzen diren sintomak - **hilekoaren aurreko sindromea** - azaltzeko, neuropsikiatraren iritzian garai horretan emakumearen garun-zati batzuek %25erainoko aldaketak izaten dituzte. ETC-prentsa

Ez omen dago **hilekoaren aurreko sindromea** behar bezala diagnostikatua. ETC-prentsa

Patologiaren ikuspegitik ongizatearen ikuspegira pasatu da, eta horrek lagundu die gaixotasun gisa hartuak nahi izan ez diren dismenorreari eta **hilekoaren aurreko sindromeari** osasungintzan bere lekua izaten. ETC-zientzia, zuzenbidea

Diotenez, sexu-arazoak, **hilekoaren aurreko sindromea** eta menopausiaren arazoak arindu daitezke kristal boteretsu honekin. ETC-entziklopedia

29 *hipofisiaren aurreko gingil* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Edoskitzeko unean, haurra eskuetan erabiltzearekin erlazionatutako kinada fisiko eta zentzumen-kinada batzuk bidaltzen dira hipofisira; horren ondorioz, prolaktina ugari askatzen da **hipofisiaren aurreko gingilean** , eta oxitozina, hipofisiaren atzeko gingilean. ETC-zientzia, zuzenbidea

30 *menstruazioaren aurreko sindrome* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Menstruazioaren aurreko sindrome larria pairatzen duten emakumeen %60k inguruk gorabehera psikiatrikoren bat daukate. ETC-prentsa

31 *Oraingo Aroaren Aurreko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Oraingo Aroa egutegi gregorianoko urteak zehazteko erabiltzen den notazio sistema bat da, Dionisio Eskasak ezarritako Anno Domini notazioaren ordezko gisa. Oraingo Aroa baino lehengo urteei **Oraingo Aroaren Aurrekoa** deritze. ETC-entziklopedia

32 *sekuentzia nagusi aurreko izar* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Sekuentzia nagusi aurreko izar bat da, hau da, oraindik eraketa prozesuan dagoena. Barnealdeko bikotetik 350 unitate astronomikoko distantziara, 1600 urte edo gehiago behar ditu orbita bat osatzen. ETC-entziklopedia

33 *sekuentzia nagusiaren aurreko izar* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Sekuentzia nagusiaren aurreko izarrak, eboluzio fasean aurkitzen diren izarrak dira. ETC-entziklopedia

34 *sekuentzia nagusiko aurreko izar* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Oraindik sekuentzia nagusira iritsi ez diren izar gazteak dira (**sekuentzia nagusiko aurreko izar** sekuentzia nagusiaren aurreko izarrak). Hodei molekularretatik gertu daude, eta bere izar aldagarritasunagatik eta bere kromosferan dituen lerro biziengatik identifikatzen dira. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

aldez aurreko (57); **ate aurreko** (12)

aurreko aldea (16); **aurreko aldean** (48); **aurreko aldetik** (11); **aurreko aldian bezala** (11); **aurreko aldietan** (14); **aurreko asteburuan** (38); **aurreko asteetan** (23); **aurreko asteko** (32); **aurreko atalean** (16); **aurreko aulkian** (11); **aurreko azken** (50); **aurreko batean** (52); **aurreko beste** (16); **aurreko bi partidetan** (12); **aurreko bi urteetan** (22); **aurreko biak** (38); **aurreko bien** (12); **aurreko bietan** (13); **aurreko bizitza** (14); **aurreko bizitzan** (12); **aurreko denboraldia** (14); **aurreko denboraldian** (95); **aurreko denboraldietan** (13); **aurreko denboraldiko** (33); **aurreko egoera** (12); **aurreko egoerara** (15); **aurreko egun** (17); **aurreko egunean** (99); **aurreko eguneko** (25); **aurreko egunetako** (17); **aurreko egunetan** (115); **aurreko eta atzeko** (14); **aurreko garai** (14); **aurreko garaian** (14); **aurreko garaietan** (14); **aurreko gaua** (11); **aurreko gauean** (94); **aurreko gaueko** (22); **aurreko gobernuak** (15); **aurreko guztia** (21); **aurreko guztiak** (17); **aurreko hankak** (12); **aurreko hauteskundeetan** (26); **aurreko hilabetean** (22); **aurreko hilabeteetan** (12); **aurreko hilean** (14); **aurreko hiru** (46); **aurreko hori** (11); **aurreko horman** (11); **aurreko igandean** (31); **aurreko ikasturtean** (12); **aurreko jardunaldian** (23); **aurreko kanporaketan** (20); **aurreko koadroetan** (44); **aurreko lan** (12); **aurreko lana** (11); **aurreko lanetan** (12); **aurreko larunbatean** (19); **aurreko lau** (26); **aurreko legealdian** (12); **aurreko legegintzaldian** (21); **aurreko lehen** (15); **aurreko liburuetan** (11); **aurreko marka** (18); **aurreko ostiralean** (14); **aurreko partida** (16); **aurreko partidetan** (22); **aurreko plazan** (16); **aurreko sasoian** (34); **aurreko udan** (15); **aurreko urte** (17); **aurreko urtean baino** (95); **aurreko urtearekin alderatuta** (12); **aurreko urteetako** (56); **aurreko urteetan baino** (23); **aurreko urteetan bezala** (15); **aurreko urteko** (63); **aurrez aurreko** (115)

azken aurreko (84); **baina aurreko** (53); **bere aurreko** (72); **beren aurreko** (11); **denboraldi aurreko** (70); **dira aurreko** (25); **ditu aurreko** (11); **donostia aurreko** (14); **du aurreko** (49); **dute aurreko** (17); **edo aurreko** (13); **ere aurreko** (23); **etxe aurreko** (60); **ez da aurreko** (16); **ez zuen aurreko** (11); **final aurreko** (12); **gerra aurreko** (61); **gure aro aurreko** (20); **gure aurreko** (38); **haren aurreko** (11); **hasi aurreko** (46); **hauteskunde aurreko** (13); **hil aurreko** (19); **honen aurreko** (20); **iritsi aurreko** (16); **izan zen aurreko** (11); **joan aurreko** (18); **jokatu aurreko** (12); **kristo aurreko** (26); **nire aurreko** (21); **nuen aurreko** (12); **prentsaren aurreko agerraldia** (11); **sortu aurreko** (11); **unibertsitate aurreko** (12); **zegoen aurreko** (11); **ziren aurreko** (22); **zituen aurreko** (18); **zure aurreko** (12); **zuten aurreko** (19)

aurrekoa baino (60); **aurrekoa da** (11); **aurrez aurrekoa** (13); **azken aurrekoa** (11)

aurrekoak baino (39); **aurrekoak bezain** (15); **aurrekoak bezala** (18); **aurrekoak ez** (14); **aurrez aurrekoak** (13)

bere aurrekoaren (11)

gure aurrekoek (41)

aurrekoekin bat (12)

aurrekoetan baino (14); **aurrekoetan bezala** (23); **aurrekoetan ez bezala** (18)

---

aurrekondu ik **aurrekontu**.

---

aurrekontratu *iz* beranduago kontratu bat sinatzeko konpromiso idatzia.

Zarauztarrak Asegarce enpresarekin **aurrekontratu** bat sinatuta dauka, eta badirudi maiatzean egingo duela debuta. Berria - Kirola

Valentziarekin **aurrekontratua** nuela entzuteak, adibidez, min handia egin zidan. Berria - Kirola

Hotz egiten du jada, baina hala ere metro sarrera batean geratu gara **aurrekontratua** sinatzeko. Harkaitz Cano

---

aurrekontu 1 *iz* egiteko bat kostako denaren aldez aurretiko kalkulua.

Aurrekontua egin ziotela garajean, uste baino garestiagoa, eta denen laguntza espero zuela. Iñaki Iñurrieta

Poudes-ek zuen beraz egin Luzaideko eliza berriarentzat behar zen marrazki andana edo proiektua, bai eta **aurrekontu** edo debisa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gehienik, gudarien bidaia eta gerraren **aurrekontuetarako** nahi zuten jakin. Pello Zabala

Obrako **aurrekontua** zehatz-mehatz egin beharreko gaiaren arazoa ukitzen du hemen. Santiago Iruretagoiena

Nahi nuenaren marrazki bat egiten banion, bera ardura zitekeela **aurrekontua** eskatzeaz, baina ez zuela uste guztira hogei mila duro baino gehiago eskatuko zidatenik. Ramon Saizarbitoria

Badator ezustean halako miaketa bat, edo lanak egin behar dituztela urtean behin ere zabaltzen ez den txabola hartan, edo **aurrekontu** xume bat bereizi dela hoditeria hobetzeko, eta horra non ageri den artzainen gazta. Koldo Izagirre

2 *iz* jarduera edo erakunde baten aldi jakin bateko sarrera eta irteeren aurreikuspena; aurreikuspen hori azaltzen duen dokumentua.

Errazki joango ziren faktura guztiak laborategiaren izenean eta, neronek kontrolatzen nituen urteroko **aurrekontuetan**, pare bat milioi pezeta gora edo behera, ez zen ezer izango. Hasier Etxeberria

Adibidez, datorren urteko **aurrekontuetan** Frantziak sortzen du 55 miliar euroren mentsa. Herria

Gobernuak iazko **aurrekontuen** gaineko auditoria eskatuko dio Nafarroako Kontuen Ganberari . Berria - Kultura

Aurrekontuetan guztientzako dirurik ez dagoela ohartarazi du. Berria - Ekonomia

Antolatzaileek ere, **aurrekontua** zuritzeko adina eginez gero -ordu bat nola edo hala betez gero, alegia-, pozik. Joxerra Garzia

Beldur ziren Linoren gertaera Barne Saileko **aurrekontua** kudeatzen zuten patrikazimurrek hodiak oraindik ere urte batzuk gehiago irauteko moduan zeudela argudiatzeko aitzakia bezala ez ote zuten erabiliko. Harkaitz Cano

Venezuelan **aurrekontuak** petrolio barrikaren arabera egiten dira. Pako Aristi

3 *aurrekontu defizit*

Lehenengo lau herrialdeotako **aurrekontu defizita** euroaren eremuko Egonkortasun Ituna baino txikiagoa da, Barne Produktu Gordinaren %3 baino txikiagoa, beraz. Berria - Ekonomia

Epe luzeko interesen igoaldi horrek jardueraren gainean izan zuen eragin negatiboak, alabaina, **aurrekontu-defizita** handitzearen ondorio hedakorra bigundu baino ez zuen egiten. Koro Navarro

â€¢ Estatuaren gastuak murriztu: **aurrekontu defizit** oro gaitzesgarria da, bere barne osaketa kontuan izan gabe. Iñaki Heras

4 *aurrekontu nazional*

Europako aurrekontuari ekarpen gehigarriak egitea proposatu zuen, irtenbide gisa, txandakako presidenteak: "Europak autofinantzaketa handiagoa behar du; izan ere, **aurrekontu nazionalei** ezin diegu zama gehiago ezarri. Berria - Mundua

Garapen-agentzia nazionalek nahiz nazioarteko erakundeek bideratu, herrialde industrializatuetako **aurrekontu nazionalek** finantzatzen dute ia osorik laguntza hori. Koro Navarro

5 *aurrekontu orokor*

Errege Etxekoak Estatuko **aurrekontu orokorretatik** soldata jasotzen duten pertsonaia publikoak dira, eta hori dela-eta, kritikagarriak dira», esan zuen Madrazok. Berria - Euskal Herria

Hortaz, onartu berri duen Espainiako **Aurrekontu Orokorrean** 750.000 euroko bi partida zuzendu ditu obrak has teko. Berria - Euskal Herria

Espainiako **aurrekontu orokorrak**. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Legebiltzarrak 2006ko **aurrekontu orokorrak** gaur onartuko ditu. Berria - Harian

Nafarroako Parlamentuak eztabaidatu duen 2006ko Nafarroako **aurrekontu orokorra** 3.532.412.300 eurokoa da. Berria - Harian

Politikariak egin dezakeena, egin behar duena, zera da: nazioarentzat zientziak duen garrantzia erabaki, eta, horren arabera, zer zati dagokion **aurrekontu orokorretik**. Juan Garzia

6 *aurrekontu orokorren lege* *(corpusean ez dago; ETCn **114** agerraldi)*

Legez jasota dago, Estatuko **Aurrekontu Orokorren legeak** zuzenketa jaso baitzuen herenegun, epe hori zehazteko. ETC-prentsa

Soldata murrizketaren auziak 2010. urteko EAEko **Aurrekontu Orokorren Legean** du jatorria. ETC-prentsa

1987ko Estatuko **aurrekontu orokorren legearen** arabera, Eguberrietako saria ekainaren 1etik abenduaren 1era funtzionarioek eskainitako zerbitzuarekin erlazionatuta dago. ETC-prentsa

Estatuaren **Aurrekontu Orokorren Legeak** zuzkituko du urtero e) letra honetan aipaturiko kreditu-erreserba, aurrez Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialak txostena eginik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dekretu hori urte horretako **Aurrekontu Orokorren Legean** egindako egokitzapen baten bidez onartu zen, eta kontrol-sistemetan ekarri zuen berrikuntza zela-eta, kontrol-modu hori bere aldetik araututa geratu zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Estatuko **Aurrekontu Orokorren Legean**, itun berezia duten ikastetxeek familiengandik jaso ahal izango dituzten kuoten gehieneko zenbatekoa finkatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Estatuaren **Aurrekontu Orokorren Legearen** bidez baino ezin aldatu ahal izango da Konstituzio Auzitegiko pertsonalaren plantilla. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jardunean dagoen gobernuak ezingo du, orobat, Estatuko **Aurrekontu Orokorren Lege** Proiektua onetsi, ezeta beste lege-proiekturik aurkeztu Diputatuen Kongresuari edo Senatuari. ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *aurrekontu publiko*

Izan ere, Euskal Herriko unibertsitate pribatuak hain garrantzi handikoak izateak, mesede handia egiten die **aurrekontu publikoei**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Helburu ohikoenak hauek izaten dira: ekonomia hazkundea, enpleguaren sorkuntza, prezioen egonkortasuna, **aurrekontu publikoen** sarrera eta gastuen arteko oreka, atzerri oreka (hau da, inportazio eta esportazioen arteko oreka) eta truke-tasaren egonkortasuna. Iñaki Heras

Europako Batasunean gero eta estatu kide gutxiagok gainditzen dute **aurrekontu publikoen** gaineko Bruselaren azterketa. Berria - Ekonomia

8 *aurrekontuen urrezko arau* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aurrekontuen urrezko araua esan diotena dago akordio horren barruan, egiturazko defizita mugatzeko araua.>>Dozena bat estatuk berretsi dute jada martxoaren 2an sinatutako akordioa, besteak beste Alemaniak, Frantziak, Greziak, Italiak, Espainiak, Irlandak eta Portugalek. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurrekontu akordioa (3); **aurrekontu arazoak** (3); **aurrekontu bat** (6); **aurrekontu defizit** (3); **aurrekontu defizita** (5); **aurrekontu egitasmoa** (5); **aurrekontu handiagoa** (6); **aurrekontu hori** (5); **aurrekontu orokorrak** (5); **aurrekontu orokorren** (4); **aurrekontu oso** (3); **aurrekontu osoa** (7); **aurrekontu osoaren** (15); **aurrekontu parte hartzaileen** (3); **aurrekontu partida** (4); **aurrekontu partidak** (4); **aurrekontu politika** (6); **aurrekontu politikak** (4); **aurrekontu proiektu** (3); **aurrekontu proiektuak** (9); **aurrekontu proiektuan** (8); **aurrekontu proiektuaren** (5); **aurrekontu proiektuari buruz** (3); **aurrekontu saila** (4); **aurrekontu txikiena** (3); **aurrekontu txikiko** (3); **aurtengo aurrekontu** (4)

bere aurrekontu (4); **bideratutako aurrekontu** (3); **da aurrekontu** (4); **datorren urteko aurrekontu** (3); **du aurrekontu** (6); **dute aurrekontu** (5); **eaeko aurrekontu** (6); **espainiako aurrekontu** (6); **espainiako gobernuaren aurrekontu** (4); **euroko aurrekontu proiektua** (4); **eusko jaurlaritzaren aurrekontu** (3); **gobernuaren aurrekontu proiektua** (3); **gobernuaren aurrekontu proiektuari** (4); **jaurlaritzaren aurrekontu proiektua** (3); **milioi euroko aurrekontu** (7); **nafarroako aurrekontu** (6); **nafarroako gobernuaren aurrekontu** (3); **urterako aurrekontu** (3); **zuen aurrekontu** (4)

aurrekontua aurkeztu (3); **aurrekontua aurreikusi** (3); **aurrekontua baino** (5); **aurrekontua bi** (3); **aurrekontua bozkatu** (3); **aurrekontua da** (4); **aurrekontua du aurten** (3); **aurrekontua dugu** (3); **aurrekontua ere onartu** (3); **aurrekontua ez da** (4); **aurrekontua izan du** (6); **aurrekontua izan dute** (3); **aurrekontua izango du** (28); **aurrekontua izango duela** (3); **aurrekontua murriztu** (4); **aurrekontua onartu** (15); **aurrekontua zehaztu** (5); **aurtengo aurrekontua** (7)

defentsarako aurrekontua (3); **duen aurrekontua** (9); **duten aurrekontua** (5); **euro inguruko aurrekontua** (4); **euroko aurrekontua dauka** (5); **euroko aurrekontua du** (33); **euroko aurrekontua duen** (3); **euroko aurrekontua dute** (7); **euroko aurrekontua izan** (10); **euroko aurrekontua izanen** (3); **euroko aurrekontua izango** (29); **euroko aurrekontua osatu** (3); **euroko aurrekontua zuen** (6); **gure aurrekontua** (4); **lanen aurrekontua** (4); **milioi dolarreko aurrekontua** (6); **milioi euroko aurrekontua** (83); **milioiko aurrekontua du** (3); **obraren aurrekontua** (3); **onartutako aurrekontua** (6); **osasunaren aurrekontua** (3); **sailaren aurrekontua** (3); **urteko aurrekontua** (4); **urterako aurrekontua** (3); **zenbateko aurrekontua izango** (3); **zuen aurrekontua** (3)

arabako aurrekontuak (6); **aurkeztu dituen aurrekontuak** (4)

aurrekontuak aurkeztu (4); **aurrekontuak aurrera ateratzeko** (4); **aurrekontuak babesteko** (5); **aurrekontuak babestuko** (3); **aurrekontuak bozkatu** (3); **aurrekontuak direla** (3); **aurrekontuak eajk** (4); **aurrekontuak egiteko** (4); **aurrekontuak ez** (9); **aurrekontuak gora** (3); **aurrekontuak handitu** (3); **aurrekontuak hitzartu** (5); **aurrekontuak luzatu behar** (3); **aurrekontuak luzatuta** (3); **aurrekontuak negoziatzeko** (5); **aurrekontuak onartu dituzte** (4); **aurrekontuak onartu zituzten** (3); **aurrekontuak onartzeko** (10)

aurtengo aurrekontuak (6); **baina aurrekontuak** (3); **da aurrekontuak** (3); **datorren urteko aurrekontuak** (7); **diputazioko aurrekontuak** (3); **dituzten aurrekontuak** (4); **du aurrekontuak** (3); **eae ko aurrekontuak** (5); **eaeko aurrekontuak** (11); **espainiako aurrekontuak** (6); **ez ditu aurrekontuak** (3); **jaurlaritzaren aurrekontuak** (3); **nafarroako aurrekontuak** (6); **plana eta aurrekontuak** (3); **udal aurrekontuak** (3)

aurrekontuan hazkunde hori (3); **dagokion aurrekontuan hazkunde** (3); **idatziari dagokion aurrekontuan** (3)

aurrekontuarekin alderatuta (3); **milioi euroko aurrekontuarekin** (9)

aurrekontuaren arabera (6); **aurrekontuaren berri** (3); **aurrekontuaren egitasmoa** (3); **aurrekontuaren erdia** (5); **aurrekontuaren inguruko** (3); **aurrekontuaren zati handiena** (5); **aurrekontuaren zatirik handiena** (3); **bere aurrekontuaren** (4); **da aurrekontuaren** (3); **du aurrekontuaren** (5); **urterako aurrekontuaren** (5)

aurrekontuari buruzko (4); **aurrekontuari ekarpen** (3)

aurrekontuei buruz (4); **aurrekontuei buruzko** (6); **datorren urteko aurrekontuei** (3); **espainiako aurrekontuei** (3); **nafarroako aurrekontuei** (3); **urteko aurrekontuei begira** (3)

aurrekontuek ez (4); **onartutako aurrekontuek** (3)

aurrekontuekin batera doan (3); **espainiako aurrekontuekin batera** (3)

aurrekontuen alde (8); **aurrekontuen aurka** (4); **aurrekontuen bozketan** (3); **aurrekontuen eztabaida** (8); **aurrekontuen gainean** (5); **aurrekontuen inguruan** (8); **aurrekontuen inguruko** (8); **aurrekontuen luzapena** (3); **aurrekontuen murrizketa** (3); **eaeko aurrekontuen egitasmoari** (3); **espainiako aurrekontuen** (8); **gobernuak aurrekontuen** (4); **nafarroako aurrekontuen** (3)

aurrekontuetako defizita (3)

aurtengo aurrekontuetan (7); **eaeko aurrekontuetan** (8); **nafarroako aurrekontuetan** (3); **urteko aurrekontuetan** (9)

aurrekonturik ez (8); **aurrekonturik handiena** (3); **aurrekonturik txikiena** (4)

---

aurrekotasun *iz* aurreko izatearen nolakotasuna.

Diskurtsoa egutegi batean gararaziz, eta bere osagai bakoitzari data bat emanaz, ez da lortzen **aurrekotasunen** eta orijinaltasunen behin betiko hierarkia; hierarkia hau balioztatzen ahalegintzen den diskurtso sistemen araberakoa izango da beti. Xabier Arregi

---

aurrelan *(ETCn **111** agerraldi, horietatik **56** azken sei urteetan) iz* lan jakin bat egiteko, aurrez egin behar den lana. ik **prestalan**.

Halako batean isilean, xuxurla moduan, labekada berri bat agertzen da auskalo zerk bultzatua (ondo egindako **aurrelana**, zori helezina, magia ukitutxoak...). Berria - Kultura

---

aurrelari 1 *iz* pilota-jokoan nahiz taldekako beste kiroletan, aurrean jartzen den jokalaria.

Lau gol sartu zituen **aurrelari** latorretarrak eta, partidu amaieran, aldagelako atean zain geratu ziren aita eta biok. Aritz Gorrotxategi

Askotan gertatzen den bezala, gibelekoak dio irabazi **aurrelariari**, bigarren maileko xapelgo huntan. Herria

Borroka nagusia bi **aurrelarien** artekoa izango zen, Zalakainen eta Katxoren artean. Koro Navarro

Hastapenean **aurrelari** lana ez zitzaion hain errex, baina orain baditu partida ederrak eginak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Orain arte ez zaizkizu sekula praka laburretan pilota baten atzetik dabiltzan **aurrelari**, atzelari eta defentsak hain hutsalak iruditu. Sonia Gonzalez

Aurrelariak bai, golik ez! Berria - Kirola

Hire aita **aurrelaria** zuan, ni hegala, besteak atzelari eta eskuineko erdilari, ez nauk gogoratzen. Josu Zabaleta

Parisko jokolariak Akitaniatik jinak gehienak: gustatu zitzaidan partida eta Hiri nagusiko gazteek zuten irabazi, Artestar mele erdilaria pasatu baitzen azken mementoan bi **aurrelarien** artean entsegua landatuz marra xuriaren gibelean. Piarres Aintziart

2 *izond/iz* aitzindaria, gidaria.

Alabaina, soldadu **aurrelari** izateak ere bazuen erakarpenik, izan ere, odol gosez, erraz mendekatu ahal izango baitzituen sufriarazi zutenak eta bizitza eroso eta zoriontsua porrokatu ziotenak. Patxi Zubizarreta

Inkontru bakarra izan zuten bizkaitarren **aurrelariekin**. Aingeru Epaltza

Eta gudari **aurrelariak** ipini zituen kanpalekuaren inguruan. Elizen arteko biblia

3 ***aurrelari-talde***

Onuradun nabarmenena kanpo-proletalgoa izaten da, noski; zeren eta zibilizazio baten **aurrelari-talde** militarrengandik barbaroek -lehenengo arerio gisa eta gero mertzenario gisa- hartzen duten hezkuntzak gai egiten ditu, inperioa kolapsatzen denean, eroritako hesia arrapaladan zeharkatu eta ondorengo estatuak berenganatzeko; baina dagoeneko aritu gara "aro heroiko"ko lorpen horien izaera igarokorraz. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurrelari argentinarra (6); **aurrelari argentinarrak** (8); **aurrelari asko** (4); **aurrelari australiarrak** (5); **aurrelari bakarra** (10); **aurrelari bakarrarekin jokatu** (3); **aurrelari bat fitxatu** (5); **aurrelari batek** (9); **aurrelari baten** (5); **aurrelari bati** (3); **aurrelari beteranoak** (4); **aurrelari bikotea** (6); **aurrelari brasildarra** (4); **aurrelari donostiarra** (3); **aurrelari durangarrak** (3); **aurrelari errioxarrak** (3); **aurrelari frantziarrak** (3); **aurrelari gaztea** (6); **aurrelari gazteak** (9); **aurrelari gaztearen** (3); **aurrelari gazteari** (3); **aurrelari gisa joka** (3); **aurrelari handia** (4); **aurrelari lanetan** (4); **aurrelari lanetarako** (4); **aurrelari nafarrak** (10); **aurrelari nafarraren** (5); **aurrelari ohi** (3); **aurrelari ona da** (3); **aurrelari onak** (4); **aurrelari onena** (4); **aurrelari onenak** (7); **aurrelari peto** (8); **aurrelari postuan** (7); **aurrelari serbiarra** (3); **aurrelari serbiarrak** (7); **aurrelari titularra** (3); **aurrelari trebea** (6); **aurrelari trebeak** (5); **aurrelari turkiarrak** (4); **aurrelari uruguaiarra** (5); **aurrelari uruguaiarrak** (4); **aurrelari uruguaitarra** (6); **aurrelari uruguaitarrak** (3); **aurrelari zuri gorriak** (3)

beste aurrelari bat (7); **bigarren aurrelari gisa** (7); **dagoen aurrelari** (3); **den aurrelari** (3); **ditu aurrelari** (5); **du aurrelari** (3); **duen aurrelari** (6); **erdiko aurrelari gisa** (4); **ez da aurrelari** (3); **hiru aurrelari** (7); **lau aurrelari** (8); **munduko aurrelari** (4); **osasunako aurrelari** (8); **realeko aurrelari** (4); **sartu zituen aurrelari** (3); **taldeko aurrelari** (6); **urteko aurrelari** (5); **valdo aurrelari** (3); **verpakovskis aurrelari txikiak** (3); **xabier larraia aurrelari** (3); **zen aurrelari** (4); **zuen aurrelari** (11)

aurrelaria da (18); **aurrelaria ez** (3); **aurrelaria ezin** (3); **aurrelaria fernando** (3); **aurrelaria fitxatu du** (5); **aurrelaria fitxatzeko** (3); **aurrelaria izan zen** (5); **aurrelaria izanda** (3); **aurrelaria izango da** (3); **aurrelaria oso** (3); **aurrelaria zen** (4); **boli kostako aurrelaria** (4); **da aurrelaria** (4); **duen aurrelaria** (5); **erdiko aurrelaria** (9); **iberoko aurrelaria** (10); **irurtzungo aurrelaria** (3); **lekuineko aurrelaria** (5); **lemoako aurrelaria** (3); **llorente aurrelaria** (3); **mido aurrelaria** (3); **urteko aurrelaria** (5); **x aspeko aurrelaria** (6); **x osasunako aurrelaria** (11); **x realeko aurrelaria** (3)

aurrelariak atzo (4); **aurrelariak bere** (6); **aurrelariak dira** (6); **aurrelariak ere** (3); **aurrelariak ez dira** (3); **aurrelariak ez du** (5); **aurrelariak ez zuen** (4); **aurrelariak hiru** (3); **aurrelariak oso** (5); **bartzelonako aurrelariak** (4); **bere aurrelariak** (3); **berrizko aurrelariak** (4); **bi aurrelariak** (18); **boli kostako aurrelariak** (4); **dira aurrelariak** (3); **doneztebeko aurrelariak** (5); **du aurrelariak** (3); **duten aurrelariak** (4); **goizuetako aurrelariak** (4); **hiru aurrelariak** (3); **iberoko aurrelariak** (12); **irurtzungo aurrelariak** (3); **ismael urzaiz aurrelariak** (3); **lemoako aurrelariak** (3); **osasunako aurrelariak** (7); **realeko aurrelariak** (3); **taldeko aurrelariak** (3); **tricioko aurrelariak** (6); **zuen aurrelariak** (6)

aurrelariaren atzetik (3)

aurrelariek atzelari (3); **aurrelariek ez** (6); **bi aurrelariek** (16)

lau aurrelariekin (3)

aurrelarien arteko (7); **aurrelarien lana** (4); **bi aurrelarien** (4)

aurrelarirekin jokatu (3)

aurrelariren arteko (3); **bi aurrelariren** (3)

aurrelaririk onena (6)

---

aurrelerro *iz* lehen lerroa, abangoardia.

Orain arteko 'Gaizkiaren ardatza' zabalduta, 'Tiraniaren **aurrelerroan**' sartu ditu Washingtonek "estatu gaiztotzat" dituenak. Berria - Harian

---

aurrematrikula *iz* Behin-behineko matrikulatzea; behin-behineko matrikulatze agiria.

Euskal Eskola Publikoa mundura zabalik, zure irudimenera zabalik kanpainak: gurasoei **aurrematrikula** noiz egin behar duten jakinaraztea, eta gizartearen aurrean sare publikoaren irudi positiboa ematea. Berria - Euskal Herria

---

aurrematrikulatu, aurrematrikula(tu), aurrematrikulatzen da/du *ad* aurrematrikula egin.

Nafarroako hiru haurretatik bat euskaraz **aurrematrikulatu** dute. Berria - Euskal Herria

Horretarako beta irailean izango dute interesatuek, orduan irekiko baita **aurrematrikulatzeko** epea. Berria - Kultura

---

aurrematrikulazio *iz* behin-behineko matrikulazioa.

Aurtengo **aurrematrikulazioko** datuak aurreko urteotakoen bidetik joanen direla uste dute Arrotxapeko ikastetxeko gurasoek. Berria - Euskal Herria

---

aurremoderno *izond* aro modernoa baino lehenagokoa.

Aitona ekarri zuen gogora bere jardunaren hasieran Sarasuak, eta harengandik eta haren moduko **aurremodernoengandik** "hainbat gauza funtsezko" barneratu dituela aitortu zuen. Berria - Kultura

---

aurren 1 *ord* beste guztien aurretik gertatzen dena. ik **lehen**.

Bibliako gatza eta beste sineste askotakoa, horixe besterik ez da: **aurren** eta azken bizi aztarna: ura sutan, sua uretan. Patziku Perurena

Laburtasun hori auziaren iraupenaren eta **aurrena** epaitua izateko antzinatasun eskubidearen arabera neurtu behar da. Juan Martin Elexpuru

Bere atzetik abiatu ziren guztiak, Leire **aurrena** zihoala Agustina izebaren ondotik. Aitor Arana

Eta kontakizun hura asteko egun guztietan errepikatu zigun egunean bi aldiz, **aurrena** atsedenaldian komunean eta bestea eskola bukatuta hiriko harresietan. Pello Lizarralde

Gure baitan ditugun bi izakari horien arteko kontrakotasuna, batek baietz, nahi zuela, besteak ezetz, aurka eginez, **aurrena** bat, hurrena bestea, gailentzen zirela. Josu

Zabaleta

Gizonek **aurrenei** ekin zieten, agureak zeruari begiratu zion, eguraldiak aldaketa balekar moduan, eta guk borda-zurubian gora ekin genion. Edorta Jimenez

Aitaren keinua errepikatuz, kapelaren azpitik begiratuz alegia, baina gero argi adieraziz, **aurrena** atsegina, hurrena beldurra. Josu Zabaleta

Selakua ermitaren ondoko belardira igotzen ginen, arrapalada batean, nor **aurrena**, eta arnasestuka, kilkerrak harrapatzera. Txillardegi

2 (adizlagun gisa) ik **aurrena**.

Honela, apaizak, **aurren** joaki-eta, haien etorreraz ez zela konturatu ikusiz, hango harri-tankar batzuen gerizan gordetzeko, esan zien keinuka. Patxi Ezkiaga

Laztana, neurea izango da zakil eder hau **aurren** xurgatzeko ohorea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

3 ***aurrenean*** *adlag* hasieran.

Aurrenean traba egiten zidan, argazki hura han ikusteak eta. Koro Navarro

4 ***aurrenetik*** *adlag* hasieratik.

Bitxi egin zitzaidan aurren-**aurrenetik** haren figura segaila kale-jantzian ikustea, aspaldi ez eta, arratsalde hartan, Zazpi Kaleko Sabigain tabernan ikusi nuenetik. Inazio Mujika Iraola

5 ***azken-aurren*** *ord* azkenaren aurre-aurretik dagoena.

Igor Elortza, Amets Arzallus, Jesus Mari Irazu eta Maialen Lujanbiok Udaberriko Bertso Saioen zikloko **azken aurrena** egingo dute gaur 13: 00etan Santutxuko Karmelo plazan. Berria - Kultura

Izan ere, lehen txandan aritu ziren lau traineruetatik bik bukatu zuten lehen postuan, baina beste biek azken eta **azken-aurren** egin zuten. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurren aurreneko (12); **aurren aurrenik** (15); **azken aurren** (3)

---

aurrena *adlag* lehenik. ik **aurre 2**; **aurrenik**.

Aurrena hamsterrak izan ziren -azaldu zidan Mary Annek. Bernardo Atxaga

Ibiltzekoa **aurrena**, eserita egotekoa ondoren, buruari eusteko gaitasuna azkena. Berria - Gaiak

Beste askotan, maiatz-ekainean, bostok betiere (seigarrenik ez, eta ez dut berriro errepikatuko) Imanolek zabaldu zituen begiak **aurrena**. Txillardegi

Kafesne katilua eskuak berotzeko **aurrena**, barrenak berotzeko gero; ordaindu, eskerrak eman eta salmenta-tokira bueltan. Arantxa Iturbe

Aurrena irribarre moreno horrek harrapatuko zaitu. Alberto Barandiaren

Aurrena, herri hau eraiki genuen eta gero, atzerritar askori, Europako kakari, Poloniako ghettoetako zaborrari, ez diogu inolako trabarik jarri hona etortzeko eta, gure ordez, agintea hartzeko. Lopez de Arana

Galdeketa zeraman poliziak agindu zion baten bati, gazteetako bati, eusteko niri hanketatik, **aurrena**, eta gainean esertzeko, gero. Agurtzane Juanena

-Europatik nator Kalifornian lan egitera, baina **aurrena** Renoko lehengusua ikustera noa. Javi Cillero

Gelak poliki aztertu nitian, **aurrena** bat, gero bestea. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurrena bakea (4); **aurrena bat** (4); **aurrena bere** (7); **aurrena bi** (6); **aurrena ez** (3); **aurrena izan** (4); **aurrena izango** (4); **aurrena nire** (4); **aurrena nor** (3); **aurrena pentsatu** (3); **aurrena topatzen** (3); **azken aurrena da** (3); **baina aurrena** (16); **begiratu zion aurrena** (3); **behar da aurrena** (4); **behar du aurrena** (3); **behar dut aurrena** (3); **behar zuen aurrena** (3); **beharko lukete aurrena** (3); **berak aurrena** (3); **den aurrena** (3); **diot aurrena** (4); **dira aurrena** (10); **ditu aurrena** (5); **dugu aurrena** (4); **dute aurrena** (7); **egin zuen aurrena** (5); **egingo dituzte aurrena** (3); **esan zuen aurrena** (3); **eskuak aurrena** (3); **genuen aurrena** (3); **ginen aurrena** (3); **hartu zuen aurrena** (3); **hasi zen aurrena** (3); **izan zen aurrena** (11); **jo zuen aurrena** (6); **litzateke aurrena** (3); **ni aurrena** (5); **nik aurrena** (3); **nintzen aurrena** (3); **nituen aurrena** (3); **pentsatu nuen aurrena** (4); **saiatu zen aurrena** (4); **zidan aurrena** (3); **ziren aurrena** (13); **zituen aurrena** (5); **zituzten aurrena** (6); **zitzaidan aurrena** (3); **zu aurrena** (4); **zuten aurrena** (16)

---

aurrendari *iz* aitzindaria.

Burnia eta zura lantzen, eta beste mila modutako eskulanetan **aurrendari** izan genuen. Patziku Perurena

Orokorrean zera esango genuke: mikroorganismoari eskura jarritako elikagaiak ziklo metabolikoaren ondorioz polimeroen **aurrendari** izango diren substantzia bihurtzen dira. Berria - Gaiak

---

aurreneko **1** *izond* lehena. ik **aurrenengo**.

Aurreneko lana aurki izango du mahai-gainean erakundeko presidente berriak. Berria - Ekonomia

Hiztun zaharrenek, **aurreneko** esanahiaren itzala gordeko dute. Iñigo Aranbarri

Eta hori baino hobea: banekien astearte eta ostegunetan zure laguna itzultzen zela **aurrenekoa** etxera. Arantxa Iturbe

Otxarkoagako **aurreneko** etxeetan bizi zen ordurako Pereira, eta auzoaren gaineko baserritik jaitsi ohi zen herrenka Ernesto. Urtzi Urrutikoetxea

Nik **aurreneko** hartualdian sentituko dudanaz baino ez dut pentsatu nahi, zioen, gauzak hobeto ikusten direla; hortik aurrera planto egingo dut, hor gelditu, urak darabilen ohol bat bezala. Pako Aristi

Lotsagabea zen tratuan Tomas arraioa, nolako irrintziak neskek haren ondoan, burura etortzen zitzaion **aurrenekoa** esaten omen zien. Koldo Izagirre

Euskaraz irakurri nuen **aurreneko** testua mezako irakurgai bat izan zen. Ana Urkiza

Gizon txikia **aurreneko** lerroko hiru barkuetan erdikoan doa eta hortzak estuturik ditu. Harkaitz Cano

Aurreneko hitzen ondoren, azken asteetako zenbait gorabehera maiseatu zituzten. Joxemari Urteaga

Lerrook idazten ari naizenean gaudete in Dominoka ariko dira bi-biak katedraleko **aurreneko** bankuetan. Anjel Lertxundi

2 *adlag* lehenik, aurrenik.

Zirtzileria batzuk hautatu nituen **aurreneko**, nerabezarotik nireak baziren ere neure etxera eraman nahi izan ez nituen liburu batzuk. Joxan Elosegi

Idisko oso bat ikusi zuen bere begien aurrean **aurreneko**, sutan erretzen zeukatena, zumar-tantai oso bat burruntzi-legez sartuta. Patxi Ezkiaga

3 *adlag* lehenengo.

Martxan **aurreneko**, gastadore liliputarrek osatutako eskuadra eder bat ageri zen, lehen inperioko uniforme distiratsuz jantziak. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agertu zen aurreneko (4); **arratsaldeko aurreneko orduan** (3); **atzo aurreneko aldiz** (6); **aurren aurreneko** (12)

aurreneko agerraldian (4); **aurreneko aldia balitz** (4); **aurreneko aldia da** (8); **aurreneko aldia izan** (3); **aurreneko aldia izango** (5); **aurreneko aldia zen** (19); **aurreneko aldia zuen** (3); **aurreneko aldian bezala** (4); **aurreneko aldiz ikusi** (6); **aurreneko aldiz ikusten** (4); **aurreneko artikuluan** (3); **aurreneko asmoa** (3); **aurreneko astean** (4); **aurreneko atalean** (3); **aurreneko aukera** (6); **aurreneko azterketak** (3); **aurreneko bakarkako** (4); **aurreneko baldintza** (4); **aurreneko begiratuan** (4); **aurreneko bi kanporaketak** (5); **aurreneko bi postuetan** (4); **aurreneko biak sailkatuko** (3); **aurreneko biek** (5); **aurreneko bilera** (6); **aurreneko bileran** (3); **aurreneko borroka** (3); **aurreneko bost** (6); **aurreneko bozak egin** (3); **aurreneko denboraldian** (3); **aurreneko diskoa** (5); **aurreneko egunak** (3); **aurreneko egunetan** (13); **aurreneko egunetik** (6); **aurreneko emaitzak** (3); **aurreneko emaitzen arabera** (4); **aurreneko emakume** (3); **aurreneko emanaldia** (5); **aurreneko epaiketa** (3); **aurreneko erronka** (5); **aurreneko eta azkeneko** (4); **aurreneko euskal atletak** (8); **aurreneko fasean** (5); **aurreneko finala** (6); **aurreneko finalean** (3); **aurreneko finalerdia** (4); **aurreneko galdera** (3); **aurreneko gauza da** (3); **aurreneko gola** (8); **aurreneko hamar** (5); **aurreneko helburua** (3); **aurreneko hiru probak** (3); **aurreneko hirurak** (3); **aurreneko hitza** (4); **aurreneko hogei** (4); **aurreneko ikerketen arabera** (3); **aurreneko ilaran** (5); **aurreneko itzulia** (3); **aurreneko itzulian** (5); **aurreneko jaialdia** (3); **aurreneko kanporaketa** (6); **aurreneko kasua** (3); **aurreneko kezka** (3); **aurreneko lan** (3); **aurreneko lau postuetan** (4); **aurreneko legegintzaldian** (3); **aurreneko lehendakaria**

(4); **aurreneko lerroan** (7); **aurreneko liburua** (11); **aurreneko negoziazioak** (4); **aurreneko ordu** (3); **aurreneko partean** (3); **aurreneko partida galdu** (3); **aurreneko partida jokatu** (5); **aurreneko partida jokatuko** (6); **aurreneko pausoa da** (4); **aurreneko pausoa dela** (3); **aurreneko postuan** (3); **aurreneko postuetan** (7); **aurreneko presidentea** (4); **aurreneko proba** (4); **aurreneko puntua** (3); **aurreneko saioa** (8); **aurreneko saioan** (3); **aurreneko sei** (5); **aurreneko seiak** (3); **aurreneko testua** (3); **aurreneko txapelketa** (4); **aurreneko urratsa** (9); **aurreneko urteak** (3); **aurreneko urtean** (10); **aurreneko urteetan** (10); **aurreneko zatia** (9); **aurreneko zatian** (11); **aurreneko zeregina** (4)

baina aurreneko (11); **bakoitzeko aurreneko** (3); **baten aurreneko** (4); **bere aurreneko hitzak** (3); **bere aurreneko lana** (3); **bere aurreneko partida** (5); **beti aurreneko** (3); **biltzen ziren aurreneko** (3); **bizitzan aurreneko aldiz** (3); **buruzko aurreneko** (3); **da aurreneko aldia** (3); **da aurreneko aldiz** (4); **dagoen aurreneko taldea** (4); **den aurreneko aldia** (5); **denboraldi honetan aurreneko** (4); **dira aurreneko lau** (3); **diren aurreneko aldia** (5); **ditu aurreneko** (5); **du aurreneko** (15); **dudan aurreneko** (6); **duen aurreneko aldia** (3); **duen aurreneko gauza** (3); **dute aurreneko partida** (3); **duten aurreneko euskal** (8); **egin zuen aurreneko** (7); **egindako aurreneko** (5); **eginiko aurreneko** (4); **egitasmoaren aurreneko** (3); **egiten zuen aurreneko** (3); **eman zuen aurreneko** (3); **emandako aurreneko** (3); **estatutuaren aurreneko** (3); **ez da aurreneko** (3); **faseko aurreneko** (3); **genuen aurreneko** (4); **gizarte foroaren aurreneko** (3); **hauteskundeen aurreneko txandan** (3); **hil nuen aurreneko** (3); **historiako aurreneko** (3); **historian aurreneko aldiz** (3); **honetan aurreneko aldiz** (6); **horren aurreneko** (3); **horretako aurreneko** (4); **ikusi nuen aurreneko** (3); **ikusi zuen aurreneko** (3); **irabazi zuen aurreneko** (4); **itzuliko aurreneko etapa** (3); **izan zen aurreneko** (9)

jaialdiko aurreneko partida (3); **jaialdiko aurreneko partidan** (9); **jardunaldietako aurreneko hitzaldian** (3); **jo zuen aurreneko** (3); **jokatu zuen aurreneko** (4); **jokatuko dira aurreneko** (4); **jokatuko dute aurreneko** (6); **jokatutako aurreneko** (3); **kontrako aurreneko** (3); **kopako aurreneko** (3); **leherrarazi zuten aurreneko** (3); **ligako aurreneko** (4); **ligaxkako aurreneko partida** (3); **lortu duten aurreneko** (8); **lortu zuen aurreneko** (4); **mailako bere aurreneko** (3); **munduko aurreneko** (5); **nik aurreneko** (6); **nion aurreneko** (3); **nire aurreneko** (3); **nuen aurreneko aldia** (6); **nuen aurreneko aldiz** (3); **nuen aurreneko gauza** (3); **ondorengo aurreneko** (6); **ren aurreneko** (3); **sartzeko aurreneko** (4); **txapelketako aurreneko partida** (4); **txetxeniako aurreneko** (3); **zatiko aurreneko** (3); **zegoen aurreneko** (3); **zen aurreneko aldian** (4); **zen aurreneko aldiz** (12); **zenetik aurreneko aldiz** (3); **zenuen aurreneko** (3); **zion aurreneko** (7); **zioten aurreneko** (3); **ziren aurreneko aldia** (4); **ziren aurreneko aldiz** (3); **ziren aurreneko bi** (3); **zituen aurreneko** (16); **zituzten aurreneko** (8); **zitzaidan aurreneko** (3); **zuen aurreneko aldiz** (12); **zuen aurreneko partida** (3); **zuen bere aurreneko** (5); **zuten aurreneko aldia** (5); **zuten aurreneko aldiz** (3); **zuten aurreneko bonba** (4); **zuten aurreneko egunean** (3)

aurrenekoa da (3); **aurrenekoa egin** (3); **aurrenekoa izan** (6); **aurrenekoa izango** (3); **da aurrenekoa** (3); **izan zen aurrenekoa** (4); **zitzaion aurrenekoa** (3); **zuen aurrenekoa** (4)

aurrenekoan ez (5); **jaialdiko aurrenekoan** (3)

aurrenekoz ariko da (3); **aurrenekoz ikusi** (4); **da aurrenekoz** (4); **du aurrenekoz** (6); **zen aurrenekoz** (6); **ziren aurrenekoz** (3); **zuen aurrenekoz** (6)

---

aurrenekoz *adlag* lehenbizikoz.

Ezin esan dut ideia hura **aurrenekoz** nola etorri zitzaidan burura; baina behin sortuz gero, gau eta egun zebilkidan buruan. Koro Navarro

Iragan maiatzaren 19an alderdi guztietako ordezkariak erregearekin bildu ziren **aurrenekoz** . Berria - Mundua

Franco diktadore espainiarra bizirik zen artean Itoitzen urtegi bat egiteko aukera **aurrenekoz** aipatu zenean. Edurne Elizondo

Aurrenekoz ikusten dut haren aurpegia begirik gabe: kartoizko maskara bat dirudi, gaurko egunean dendetan saltzen dituztenen gisakoa. Monika Etxebarria

Kanta horren doinua omen da, usarioz, albokari hasi berriak **aurrenekoz** ikasi behar izaten duena. Patziku Perurena

Hiriren bat ikusten dugularik **aurrenekoz** horizontean, begiz jo nahi izaten den lehen gauza katedrala da. Koldo Izagirre

Teknologia berriak erabili ditut **aurrenekoz** , eta gustura geratu naiz azken emaitzarekin. Berria - Kultura

Aurrenekoz sentitzen zituen ahots batez kantari etxeko guztiak. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurrenekoz ariko da (3); **aurrenekoz ikusi** (4); **da aurrenekoz** (4); **du aurrenekoz** (6); **zen aurrenekoz** (6); **ziren aurrenekoz** (3); **zuen aurrenekoz** (6)

---

aurrenengo **1** *izond* aurrena, lehena.

aina ez duguna nahi da **aurrenengo** urratsean geratzea; Euskal Herrira ekartzean presoen auziaz ahaztea. Berria - Harian

Azkenaren egia **aurrenengoaren** egiarekin ezinbestean elkarlotua baitago. Ibon Uribarri

Emakume bat larru bizian ikusten nuen **aurrenengo** aldia zen! Juan Martin Elexpuru

2 *adlag* lehenik, aurrenik.

Hainbesteko ilunpetik hain argi gardena atera eta biziaren ondasunak argiztatu ahal izan zenituen **aurrenengo** . Xabier Amuriza

---

aurrenengoz *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi) adlag* lehenengoz.

Zeintzuk dira proposamen hau egitera eraman gaituen arrazoiak? **Aurrenengoz** , Batera-k eraman duen estrategiarekiko koherentzia mantentzearen desioa. ETC-prentsa

ETArekin harremanen bat izan duela azaldu duen auzipetu bakarra da Elkoro, orain arte deklaratu dutenen artean eta, bere aurkako akusazio nagusia ETAko kide izatea denez, harreman horren zergatia azaldu beharra zuela argudiatu zion epaileari, **aurrenengoz** moztu zionean. ETC-prentsa

Besteak beste, 1974an TVEk ekoitzitako antzezlan bat eskainiko dute **aurrenengoz** , La Mordaza, bere garaian zentsuratua izan baitzen. ETC-prentsa

1962an kantatu nuen berekin **aurrenengoz** , Bizkaiko txapeldun atera nintzen urte berean. ETC-prentsa

Hautatu beharrak, hara zer-nolako lanak! Atzerrian entzun nuen **aurrenengoz** esaera hori, nolarebait euskaratu dudana. ETC-prentsa

Zuzendari daniarrak eman zion aukera **aurrenengoz** zineman lan egiteko. ETC-prentsa

---

aurrenesku *iz* aurreskua, lehena.

-Zuk ez ohartuarena egin behar duzu, berari **aurrenesku** izaten utzi. Xabier Olarra

---

aurreneurri *(corpusean ez dago; ETCn **63** agerraldi) iz* aldez aurreko neurria.

Baina Ipeken aurrez aurre eseri orduko ohartu nintzen **aurreneurri** haiek are babesgabeago utzi nindutela. ETC-literatura, saiakera

Aurreneurri erraz horien bitartez ikasi bide zuten indiarrek Franklin Blake jauna bankuan izan zela eta hura zela Verinder andrea ikustera joateko asmoa zuen etxeko pertsona bakarra. ETC-literatura, saiakera

Alabaina, aurreko eguerdian, aski lan nuen neure buru naufragoa mihise arteko portura garraiatzen, **aurreneurriez** oroitzeko. ETC-literatura, saiakera

Espainiako Gobernuaren azpiordezkariaren ustez, "epaileak **aurreneurririk** hartu izan ez balu, ez litzateke hau gertatuko". ETC-prentsa

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak akatsik larrienak dituzten kasuetan ustiategitik ateratzeko debekua ematen ahalko du funtzionamendua, baita **aurreneurri** gisa ere, eta arriskuak kendu edo gutxitzeko behar diren neurriak hartu beharko ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondoko pertsonek eska dezakete Erregistro eskudunean **aurreneurriz** egin dadin euren eskubideei buruzko idatzoharra: ETC-zientzia, zuzenbidea

Botere publikoei dagokie **aurreneurrien** bidez eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez osasun publikoa antolatu eta babestea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ustiapen nahiz ikerketarako baimenak **aurreneurriz** idatzohar daitezke, kasuan kasuko egilespen-titulua erabilita, eta, horrekin batera, mugape-planoaren kopia ziurtatua aurkeztuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jabari-hirugarrengotza jar daiteke, horrek ukitutako ondasuna edo ondasunak enbargatu direnetik, enbargoa **aurreneurrizkoa** bada ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurreneurri horien helburuak eta mugarik gabe burutzen ahal diren jarduketak zehazten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alderdi batek **aurreneurri** gisa adostasuna eman badio kontratua hirugarren bati lagatzeari, ordezpena eragingarria izanen da hari begira, hori jakinarazten zaion unetik; ez badio **aurreneurri** gisa adostasunik eman lagapenari, lagapen horrek alderdiarengan eragina izanen du hori onartzen duenean bakarrik. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aurrenik *adlag* lehenik. ik **aurre 2**; **aurrena**.

Bulldog-begi bat irekiz, **aurrenik** kokots azpiko pikorta igurtzi zuen Jonathanek. Jon Muñoz

Etsitzen dutenak, horiexek dira **aurrenik** benetako jakintsuak. Eduardo Matauko

Lakarrak berak baieztatu du **aurrenik** faksimila atera nahi dutela, eta gero transkripzio fidagarria. Berria - Kultura

Bere obra egituratzeko moduari dagokionez, Homeroren eredua aipatzen du aurren-**aurrenik**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aurrenik irudimenaren isuria jaregiten zuen; gero limaz baliatzen zen. Juan Garzia

Grazia jaioko bada, **aurrenik** lehengo egunean aipatutako bideak ibili behar dira. Joan Mari Lekuona

Gazta saltzaile mordo bat topatu dut **aurrenik**. Txillardegi

Derioko mintegian elkarretaratu ziren **aurrenik**. Berria - Ekonomia

Antibirusak saltzen dituenak birusak asmatu eta zabaldu behar ditu **aurrenik** (egia zierto garbia bizi gaituen putetxe informatiko milamiloikadunean). Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aurren aurrenik (15); **baina aurrenik** (3); **du aurrenik** (4); **ziren aurrenik** (4); **zuen aurrenik** (3)

---

aurrepauso ik **aurrerapauso**.

---

aurrepausu ik **aurrerapauso**.

---

aurrepolitiko *izond* politika baino lehenagoko fase batekoa.

Berak aipatzen ditu hainbat faktore **aurrepolitikoak** direnak. Berria - Euskal Herria

Guk agertu genuen ikurra, izatekotan, **aurrepolitikoa** zela, Sabino Arana jaio baino hainbat urte lehenago egina zelako, eta euskara hitz egiten zen lurraldeen mapa zela hori. Berria - Kultura

---

aurrepostu *iz* lehen postua, abangoardia.

Eta Mendebaldean lehorrean izandako garaipen heleniko horren ondoren beste bat itsasoan izan zen, etruskoek mundu helenikoaren Campaniako **aurrepostuari** eraso ziotenean Kumas-en, Italiako mendebaldeko kostan, Napoles baino mendebalderaxeago. Iñaki Mendiguren

Haren irispidean jartzen nintzen trintxeretan, **aurrepostuetan**, hari ziztakarien erdian, erasoetan, metrailaren azpian, gas itogarrien erdian. Matías Múgica

"Eta "giriek" Gipuzkoa-Naparroa-Frantzia muga hirukoitzean daukaten Endarlatsako **aurrepostu** arriskutsu eta babesgabea aukeratu zian. Txillardegi

---

aurreproiektu **1** *iz* hitzarmen edo lege proiektu baten behin-behineko idazketa edo zirriborroa.

Tabakoaren publizitatea, ordea, **aurreproiektua** onartu eta legea martxan jarri aurretik debekatuko dute. Berria - Euskal Herria

Garbi zegoen, hala ere, irteera hau ziurtatzeko ez zegoela konstituzio federal baten inolako talisman-**aurreproiekturik**. Iñaki Mendiguren

2 *iz* ingeniaritza edo arkitektura-lan baten laburpen, maketa eta zirriborroak, behin betiko proiektuaren aurretik egiten direnak.

Aurreproiektu bat ere egin genuen, eta baldintza bat jarri genuen mahai gainean: gure ustez, Bilboko garapen naturala alderdi hori da, unibertsitateak han egon behar du eta gu prest gaude han sartzeko, baina ezin gara bakarrik joan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Aurreproiektu irabazleak eta azkenean gauzatu zenak ez dute zerikusirik, eta horrek harritzen zuen Gonzalez de Durana. Berria - Kultura

3 ***lege aurreproiektu***

Menpekoei laguntzeko Espainiako Gobernuak prestatutako **lege aurreproiektua** inola ere ez dela onargarria agertu du ELA sindikatuak. Berria - Euskal Herria

Puntu bidezko gidabaimenaren **lege aurreproiektua** onartu du Espainiako Gobernuak; datorren udan jarriko da abian. Berria - Euskal Herria

Espainiako Ministroen Kontseiluak oniritzia eman dio saltokien ordutegia eta egutegia arautzeko **lege aurreproiektuari**. Berria - Ekonomia

Immigrazioari buruzko **lege aurreproiektuaren** neurri nagusiak. Berria - Harian

Izan ere, **lege-aurreproiektu** horretan irakurri duguna zinez larria da euskal kulturaren ikuspuntutik. Berria - Kultura

---

aurrera **1** *adlag* aurrean den tokira.

Eta Théoden mendietako bide geldoetan zebilen bitartean, Konpainia Grisak lautadan barrena egiten zuen **aurrera**, lasterka, eta biharamuneko arratsaldean Edorasera iritsi ziren. Agustin Otsoa

Orain **aurrera**, eta iluntasunak ez zaitzatela beldurtu! Agustin Otsoa

Besteeri erakusten baitzieten gainera nola behar ziren moldatu etxeak, eliza, ikaztegiak, kargak eta deskargak, herri osoak jauzi bat egin zuen **aurrera**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gastonek **aurrera** pauso bat eman, Larrak utzi zion ari zenari. Pablo Sastre

Begiak aldapatik jaso gabe nindoan **aurrera**, elurraren distiraz itsuturik, botak altxatzeko gero eta ahalegin handiagoak eginez eta gauza bakar bat desiratuz, enbrioiaz libratzea. Joseba Urteaga

Angelak urrats bat **aurrera** egin zuen. Alberto Ladron Arana

Trenbide berrituaren azpitik igaro eta **aurrera** noala, atzean utzi ditut Elgoibarko azken etxeak. Iñigo Aranbarri

Gaztetxo bat belozipedoz zihoan errepidean **aurrera**. Gotzon Garate

2 *adlag* norbait edo zerbait dagoen tokira.

Biharamunean, epaileen **aurrera** agertu zen Joana. Juan Garzia

Ezin dugu ispilu **aurrera** joan begiek bidea erakutsita, ikusmena ote daukagun ikustera. Jenaro Garate

Fabrika **aurrera** iritsirik, jaitsi egiten gara. Eskarne Mujika

Hotel **aurrera** irten eta Fajr plazako Khomeiniren erretratu eskerga zuriz inguraturik ikusi dut alde guztietatik. Jon Arretxe

Mugako poliziaren **aurrera** iritsi naizen unea. Harkaitz Cano

-Hauxe ote da haien **aurrera** korri egiteko unea? Itziar Otegi

Hiltzaile fanatiko bat, bere printzea hilez Jainkoa zerbitzen duelakoan, aitorle baten **aurrera** agertzen da kontzientzia kasu honetaz hitz egiteko. Juan Martin Elexpuru

3 *adlag* (denboraren iragatea adieraziz)

Bizitza **aurrera** doan bezala, liburuak ere jarraipena eskatzen zuen; hain zuzen, eskuetan daukagunak gaztaroa ekarriko digu, ez berea baitezpada. Janbattitt Dirassar

Nizaz oroitzeak emango dik **aurrera** jarraitzeko.Pentsatzeko era berri bat eskatzen du umezurtz bihurtzeak, galera hori bizitzan **aurrera** gaudela gertatu bada ere.

Agurtzane Juanena

Ordezkatzen dituzte xarma liluratzaileak ontasun maitagarriaz, bai eta adinean **aurrera** doazen heinean gero eta xarma gehiago duen alegrantziaz ere. Jon Muñoz

Arratsaldea **aurrera** doa. Pako Aristi

Txantxa ugari izan zen gau osoan, atxur galantak ere bai gauerditik **aurrera**. Xabier Mendiguren Elizegi

4 *interj* adorea emateko hitza.

-Egizu nahi duzuna. **Aurrera** ! Zeurekin nauzu, nahi duzunerako. Elizen arteko biblia

Kontu handiz, baina **aurrera** ! Karlos Zabala

-Aurrera , Nadia! -esan zuen. Karlos Zabala

"Aurrera , nagi ustela!" esan zion bere buruari, garratz esan ere. Agustin Otsoa

Autobusa ez da gelditzen ordea, bizitzaren metafora gupidagabe bihurtuta: **aurrera** , beti **aurrera** ! Xabier Mendiguren Elizegi

Aurrera bada! -esan du azkenik irakasleak, auto lasterketa batean baleude bezala. Iñigo Aranbarri

5 ***atzekoz aurrera*** **1** *adlag* atzekoa aurrean eta aurrekoa atzean. ik**alderantziz**.

Ezin ahaztu, alabaina, hizkuntz unitate bat osatzen duten elementuak beste hurrenkera batean ordenatzeko eskueran ditugun aukeretako bat baino ez dela aurrekoz atzera zegoena **atzekoz aurrera** jartzea. Iñaki Arranz

Hala ere, gauzak **atzekoz aurrera** kontatzen ari naizela iruditzen zait. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta, irakurtzen duenean, beti azkeneko orrialdeetatik hasten da, **atzekoz aurrera**. Jokin Muñoz

Hala izaten da maiz; **atzekoz aurrera** mintzatzen da askotan. Itziar Otegi

Eskerrak nire lagunak estimatzen ninduen: ugazaba, izan ere, sarri egon ohi zen triste, gauzak **atzekoz aurrera** ateratzen zitzaizkiolako, eta orduan morroiekin hartzen zuen mendekua. Josu Zabaleta

Eta Maria arranguratu zen, eta otu zitzaion hura zela egunean **atzekoz aurrera** egin zuen laugarren gauza, eta Lucasek hiru aste zeramatzala ohetik altxatu gabe eta nahiko gaixorik zegoela. Unai Elorriaga

Eta kontakizuna aurrera doa, **atzekoz aurrera** . Monika Etxebarria

2 *irud/hed* Ez gatoz eraginak eta maisuak **atzekoz aurrera** jartzera, baina interesgarria da datua, Historia maiuskuladuna bezala literaturaren historia ere nola egiten eta kontatzen den gogoeta egiteko. Berria - Kultura

Arrebak **atzekoz aurrera** ipini zuen gurasoen ahalkea, Kojuak eskatu behar omen zukeen barkamena ni udaltzainetara ekartzeagatik. Koldo Izagirre

Atzekoz aurrera ipini beharra daukagu zenbait gauza, besteak beste, eskola bera. Koldo Zuazo

6 ***atzekoz aurrerako***

Dena den, ez da Urain izan ordea **atzekoz aurrerako** teknika honen erabiltzaile bakarra. Iñigo Aranbarri

Atzekoz aurrerako hurrenkeran datoz lau sailon zenbakiak: lau, hiru, bi, eta bat-zero. Joxerra Garzia

Eta XIX. eta XX. mendeetako sarraskietan eta zoritxar-katean ni ikasle eta jasale paraturik, barruan prestatutako **atzekoz aurrerako** ibilkizun kontra-kronologiko zentzudun eta subjetiboetatik zeharo hastantzen nindutela sentitzen nuen. Txillardegi

Edonola ere, askotan iduri luke **atzekoz aurrerako** bidea hartu duela egileak. Iñaki Arranz

Erosioaren **atzekoz aurrerako** bidea da, nolabait, denboraren iragaitea. Hasier Etxeberria

7 ***atzera-aurrera*** **1** *iz* ik **gorabehera**.

Are gehiago: gure **atzera-aurreretan** , oihuak eta algarak handiagoak izan ziren sartu-irtenean zebilen jende dotorearen artean. Patxi Zubizarreta

Haur honen ipurdian **atzera-aurrera** batzuk egin ondoren, aldatu egingo dugu koadroa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Makina bat **atzera-aurrera** egiteko zeuden oraindik. Anton Garikano

Besoak antxumatuta, **atzera-aurrera** laburrak egiten ditu nire aurrean; urduri jartzen nau. Anjel Lertxundi

Zaun-lantuka egin du hasieran, **atzera-aurrera** urdurietan, baina laster hartu du aterperako bidea, usna hemen, usna han. Jokin Muñoz

Bide asko ibili da harrezkero, egitasmo ugari saiatu dira eta, **atzera-aurrera** guztien ondoren, lortu da helburua. Koldo Zuazo

Halako batean, Angelok ukondoetatik oratu zion gizonari eta **atzera-aurrera** ibili zuen nahiko bortitz. Anjel Lertxundi

Han zebilen **atzera-aurrera** lagun batekin, eta soingainekoaren botoia beheratxo zeukala erakusten zion hark. Xabier Olarra

Han **atzera-aurrera** ibili nintzen, lasai, Mikel ikusiko nuen ziurtasun osoarekin. Patxi Zubizarreta

Urrats luzeak eginez, **atzera-aurrera** zebilen gelan zehar, non halako itolarri garratz bat altxarazten baitzen. Lopez de Arana

Hamar bat lagun **atzera-aurrera** zebiltzan, batzuk lurrean pankarta bat egiten, beste batzuk oholtzan beste pankarta bat eskegitzen. Unai Iturriaga

Galerian tren blindatu bat zebilen **atzera-aurrera** . Juan Garzia

Gurasoenak kaleko azoka batean **atzera-aurrera** ibili eta gero topatu nituen. Xabier Montoia

Garai batean, **atzera-aurrera** ibiliko zen oinez, lasaitzeko. Jon Muñoz

8 ***atzera-aurrera ibili***

Garai batean, **atzera-aurrera** ibiliko zen oinez, lasaitzeko. Jon Muñoz

Gurasoenak kaleko azoka batean **atzera-aurrera** ibili eta gero topatu nituen. Xabier Montoia

Jasotzaileak **atzera-aurrera** ibiltzeko modua daukan sorta haiei: lehiaketetarakoak, diska eta liburuetarakoak, egunkarietarakoak... baldin eta norberak hala erabakita eginak izan badira. Andoni Egaña

9 ***atzera-aurrerako***

Haatik, esperantza izpi bat ere banuen, herriaren inguruetan maiatzeko egun haietako jotaldietan eta **atzera-aurrerakoetan** guretarikoen arteko norbaitek herriraino egiterik eduki izan ote zuen, eta alkateari hango berririk ekarri ote zion. Edorta Jimenez

10 ***atzera-aurrerako zerra*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Haren zurrunga -hain indartsua non pentsa baitzitekeen, zulagailu batetik gabe, genetikoki manipulatutako makina-erreminta batetik aterea dela, mailu pneumatiko baten eta bulldozer baten sasikumea, **atzera-aurrerako zerra** baten kromosomekin-, haren burrunba gero eta indartsuagoa, nota bakar batekin igorria izatetik urruti. ETC-literatura, saiakera

Atzera-aurrerako zerra elektrikoak hainbat erabilera ditu, hala nola zurezko piezak, PVCzko hodiak, eta abar moztea. ETC-entziklopedia

11 ***atzera eta aurrera*** **1** *iz* atzeranzko eta aurreranzko, alde baterako eta besterako aldaketa.

Inguruko ontzietako bela zuriek, berriz, mugimendu bateratua sortzen zuten, **atzera eta aurrera** astiroan, ilargi zilartsuaren aurrez aurre, jainkoren baten idoloa gurtzen ari ziren dantzari. Anjel Lertxundi

Jendea **atzera eta aurrera** pasatzen zen haien konpartimentuko ate ondotik. Iñaki Mendiguren

Espaloian gero eta jende gehiago zegoen; makina bat gizon eta emakume esnatu eta **atzera eta aurrera** zebilen salgaien artean, batekin topo, bestearekin solas, hango hari deika. Karlos Zabala

Bera lanean jarduna zen, neskatilatatik: aitari laguntzen ibilia zen, herri txiki bateko denda batean enplegatua, eta orduan ere Turinen barrena **atzera eta aurrera** ibiltzen zen bizikletaz, mandatari eta ordain-agiri biltzaile. Juan Garzia

Horrela, egunean zehar umearen buruan **atzera eta aurrera** ibili diren pentsamenduak leku egokian jartzen dituzte, eta hurrengo goizean gogoeta guztiak ordenatuta egongo dira. Julen Gabiria

Behingoz bakarrik, tristetxoa iruditu zaidan hirian **atzera eta aurrera** ibili naiz, harik eta Hard Rock jatetxe horietako bat topatu dudan arte. Patxi Zubizarreta

Bitartean autobusez ibili ginen biok udazkenean, **atzera eta aurrera** , elkar ikusteko. Aitor Arana

Nire ahoa **atzera eta aurrera** zebilen erritmikoki. Juan Martin Elexpuru

12 *aurrera atera*[1] du *ad* egiteko zailez, proiektuez, helburuez eta kidekoez mintzatuz, nahi edo espero zena lortu.

Inori jaramonik egin gabe **aurrera ateratzen** dute haurra edo galtzeko nora joan behar diren badakite. Gotzon Garate

Aurrera atera nahi bazuen, kontu handiz eta maleziaz jokatu behar zuen. Aritz Gorrotxategi

"Klasikoak gaur" egunero **aurrera aterako** banuen, materiala hara eraman beharrean nintzen astean behin edo. Pello Zabala

Julian bera izan omen zen dirua irabazitakoa, fabrika bat sortu eta **aurrera atera** zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Salmentak goraka, osasun ona eta familia pozik, eta semeek bizimoldea **aurrera atera** zuten. Patxi Zubizarreta

Ikusi ditut baldintza horiek guztiak bilduta ere **aurrera atera** ez diren ikuskizunak. Berria - Kultura

Kolpea **aurrera atera** balitz, ikus zitekeenez, berriro 1936ko "garbiketa" zabala zetorren Euskal Herrira. Txillardegi

Ez kezkatu, **aurrera aterako** gara. Fernando Rey

Aurrera atera nintzen orduko, barre txikitan hasiak ziren besteak. Jesus Mari Mendizabal

Hala ere, **aurrera atera** den akordio horretatik letra txikia egin zait niri jakingarri. Hasier Etxeberria

13 *aurrera atera*[2] da *ad* aurrera egin.

Haatik, emakumeen egitekoa kulturgintzan atzeko aldetik **aurrera atera da**, oholtzara, erakustokira, bozgorailuetara igaro da Berria - Kultura

Peppone **aurrera atera zen**, ilun: jaka erantzi, mahaiari heldu, hortzak estutu, gora jaso eta belardira jaurti zuen. Koldo Biguri

Hala ere, **aurrera atera den** akordio horretatik letra txikia egin zait niri jakingarri. Hasier Etxeberria

Inbidiagatik, noski, bera **aurrera atera delako**. Bernardo Atxaga

Salomon Jaunaren errege-aulkian jarri zen, bere aita Daviden ordez. Gauza guztietan **aurrera atera zen**, eta Israel osoa esaneko izan zuen. Elizen arteko biblia

Aurrera atera nintzen. Jon Muñoz

Kolpea **aurrera atera balitz**, ikus zitekeenez, berriro 1936ko "garbiketa" zabala zetorren Euskal Herrira. Txillardegi

Gogotik maite zuen bizia, gogotik gozatu bere ondasunak eta senitartekoak oparotasunean **aurrera atera izana**. Patxi Zubizarreta

14 *aurrera egin* 1 aurrerantz joan.

Pauso batzuk **aurrera eginez**, dena izar eta dena ilargi, soldaduen begi bistara azaldu zen, lau botila koñak eskuetan, txin-txin hoska. Felipe Juaristi

-Bai, egia da, zu ezagutzen zaitugu, Mithrandir -zioen gizonen buruak-, eta Zazpi Ateetako pasahitzak dakizkizunez, libre zara bidean **aurrera egiteko**. Agustin Otsoa

Ilaran **aurrera egin** zuen Mikelek, ezertan eta inorengan erreparatu gabe, denak kexuka. Unai Iturriaga

Bere bidean **aurrera egin**, eta manta batez estaliriko orgatxo zikina garraiatzen zuen eskale bat ikusi zuen kalearen beste aldean. Aritz Gorrotxategi

Lerroa berriz binaka osatzen zuten, zelai eta ordoki mehatxagarrietan **aurrera egiteko**, hurrengo lilura lelotu arte. Itxaro Borda

2 *irud/hed* Gure ustez, su-etena oso lagungarria izango litzateke herri honek **aurrera egin** dezan. Herria

Gizon-emakumeek **aurrera egin** al dute milaka eta milaka urtetan ongiari buruz izandako sinesmenean? Felipe Juaristi

Hilabete batzuetan ematen zuen ezerk ez zuela **aurrera egingo**. Arantxa Iturbe

Porrot egin dute orain arte saiakerek, baina espero dugu **aurrera egingo** dutela. Berria - Mundua

Gaur, berriz, munduak **aurrera egin** du, eta emakumeak urtaroz urtaro gai banaz eginak egoten dira. Matías Múgica

Gauzek bere momentua dutela, ez bere adina, eta nik urteetan **aurrera egin** arren ez nuela sexuaren momenturik bizi izan. Jasone Osoro

Gerora, bizitzak **aurrera egin** ahala, pentsatu nian aberastasuna ez daitekeela barka, beharbada. Xabier Olarra

15 *aurrera egon*

Pentsatzeko era berri bat eskatzen du umezurtz bihurtzeak, galera hori bizitzan **aurrera gaudela** gertatu bada ere. Joxan Elosegi

16 *aurrera eraman* asmo, helburu edo lan bat gauzatzeko bidean aurrera egin; gauzatu, burutu.

Gero, gure herriak **aurrera eramateko** borrokan, elgar laguntzen ahal dugu. Herria

Apurka-apurka, sedukzio joko basatiagoen bidez erakarri zuen mutila, barualdi sexualak, uholde sexualekin tartekatuz, xantaia plan zehatza **aurrera eramanez**. Aritz Gorrotxategi

Ikasketak **aurrera eramateko** eragozpen ziren familia arazoak konpondu eta Cartagora joan zen. Imanol Unzurrunzaga

Baina ideiarik zoroenak, are kriminalenak, **aurrera eramatera** ausartzen bada inor, orduan zer? Harkaitz Cano

Hala mintzatu zen, eta Ulises biziki poztu zen, ikusi baitzuen ezkongaiak liluratu nahian ari zela, haiei opariak atera eta asmo gordeak **aurrera eramateko**. Juan Kruz Igerabide

Badauzkat ideiak... baina... inoiz ez ditut **aurrera eramaten**. Pako Aristi

Estatuak, bere erabakiak **aurrera eramateko** orduan, ez dauka inolako itun batez gaizkilearen eramapena segurtatu beharrik; segurtatu beharko du inork ez dezala gaizkilea defenda. Esteban Antxustegi

17 *aurrera irten* arazo eta oztopoak gaindituz, aurrera egin.

Hain handia egiten da dena, non ni, nolabait **aurrera irten** beharraren beharrez, lotsagabetu egiten bainaiz. Josu Zabaleta

Naturak besteen adimenaz baliatzen erakusten dio gizonari, **aurrera irteteko** berea aski ez duenean, eta laguntzak bilatzen ere bai, bere burua bere kasa defendatzeko ahulegia ikusten duenean. Juan Martin Elexpuru

18 *aurrera jo* aurrera egin.

Barregarrikeria hauen artean **aurrera jotzea** ezinezkoa denez, izatekotan hazia galtzea litzateke balizko delitu bakarra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez digu ezer esan, ordea, ez ezer egin, eta guk **aurrera jo** dugu. Anjel Lertxundi

Gure ikerketak **aurrera jo** ahala, agerian geratu da AEBetako Gobernuak berak ere ez duela zenbaki zehatzik. Berria - Mundua

Koldok **aurrera jo** zuen eta neskak jarraitu egin zion. Sonia Gonzalez

Handik, ibai ondotik belardi mailakatuetan zehar, harrizko paretatxo eta elorri eta intxusa artean zihoan bidezidor batetik **aurrera jo** zuten. Josu Zabaleta

Erreparatuz gero, argi nabari zen, holakoetan **aurrera joko** bazen atzera egin behar zela lehenik, eta zerbait aldatu. Xabier Mendiguren Elizegi

Bidea amaitu eta ezin **aurrera jo**. Gotzon Garate

19 *aurrerago* *adlag*

Moskoe-strömgo zurrunbiloa milia laurden bat **aurrerago** zegoen; baina hura ez zen betiko Moskoe-ström, zuk hemen ikusten duzun zirimola hau putzu batekoa ez den bezala. Koro Navarro

Ezin izan zuen **aurrerago** jo, zaindariak baitzeuden atearen aurrealde osoan. Felipe Juaristi

Irakasle gela pixka bat **aurrerago** dago; arrainontzi baten antzekoa da, aluminiozko egitura batek korridore zabalari lapurtutako espazioa. Iban Zaldua

Ilara bi **aurrerago** eseri zen. Unai Iturriaga

2 *adlag (denborazko testuinguruetan)* Guk **aurrerago** erabakiko dugu mobilizazioren bat antolatuko dugun ala ez. Berria - Harian

-Beno, **aurrerago** erosiko diat! -esan dit best-seller zaleak. Pako Aristi

Aurrerago, diru-sarreren kopurua zehaztuta, eta urteko egiazko balantzea eskuartean, prest legoke entitate hau zure eskaera berriz aztertzeko. Arantxa Iturbe

Aurrerago, beste zenbait liburutan etxeko eta haurtzaroko oroitzapenak bildu zituen, eta ahulduz joan ziren groteskoaren estetika eta surrealismoa, eta indartzen, berriz, sentimendua. Fernando Rey

Izango zuten **aurrerago** ere egokierarik. Anjel Lertxundi

20 *aurrerakoan* *adlag* aurrerantzean.

-Horren beldurrak berak ez nau **aurrerakoan** atzeratuko -neure artean. Txillardegi

Eta espero nuen irribarre-truke hura izatea **aurrerakoan** ere, edo luzarorako, gure ezagun izatearen agerpide bakarra. Matías Múgica

Beti egon gara gerran, orain ere gerran gaude, eta **aurrerakoan** ere gerran izango gara. Jon Alonso

Ez dute **aurrerakoan** esku hartzerik mundu honetan egiten diren lanetan. Elizen arteko biblia

21 *ez aurrera (eta) ez atzera* mugitu ezinik, atzera edo aurrera mugitu ezinik. ik**atzera**[1] 12.

Hala ere, ihesaren gogoa geldiarazi eta bere horretan **ez aurrera ez atzera** uzten zuena, Circeren maitasuna zitzaion. Felipe Juaristi

Esaldi baten erdian nengoen, **ez aurrera** eta **ez atzera**, eta gizon horrek jarraipena xuxurlatu zidan. Pako Aristi

Artean Kakanarru izaten jarraitzen nuen, **ez aurrera** eta **ez atzera**, eta haiek beren kasa hazten ari ziren, nigandik urrun. Mirentxu Larrañaga

22 *handik aurrera*

Ze nazka! **Handik aurrera**, ezin turroirik jan. Jokin Muñoz

Handik aurrera, ingelesak, holandarrak eta frantsesak Amerikan kokatu ahal izango ziren. Koro Navarro

Handik aurrera, apurka, agindutako lanak eta ariketak konplikatuz joan ziren. Andoni Egaña

Sarritan sentitu dut kilika hori **handik aurrera**, gaur egun ere sentitzen dut, baina sekula ez egun hartan bezala. Karlos Zabala

Handik aurrera normal jarraitu nituen ikasketak, eskolan. Alberto Barandiaren

Arreba ama bat bezala ikusi zuen **handik aurrera**. Jon Maia

Handik aurrera hasi behar da kontatzen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

23 *handik aurrerako*

Hübeli eskatuko zion momentuz dirua jasotzeko, eta **handik aurrerakoa** erraza izango zen. Anton Garikano

Kochek bere idatzietan kontatzen digu **handik aurrerakoa** amesgaizto bat bezalakoa izan zela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Handik aurrerakoa zoramena izan zen. Edorta Jimenez

24 *hankaz aurrera*

Ustekabeko hilketak ere eramaten du kristau mordo bat **hankaz** aurrera Iñaki Segurola

25 *hemendik aurrera*

-Zer moduz, maitea? Argi dago **hemendik aurrera** dena oroituz joango zarela. Aritz Gorrotxategi

Maddalen, hala dei dezagun **hemendik aurrera**, urteek haragiz hustu emazte mehakoil laburra zen. Itxaro Borda

Hemendik aurrera okerrago, gainera, pistolarena gertatu eta gero. Iñaki Iñurrieta

AAU (VOT) Ahots Abiatze Unea (**hemendik aurrera**, AAU) edo ingelesez Voice Onset Time (VOT) deitzen dena zer den ulertzeko, pentsa dezagun HERSKARI gehi BOKAL bilkuraz. Lourdes Oñederra

Horrelaxe izan behar du **hemendik aurrera**: Teresak bere maitaleari emango dio ahotsa, eta berak, harrapakatutako etxean dagoen gizonak, Teresari emango dio ahotsa. Oskar Arana

Beraz, **hemendik aurrera** amaitu da edonori gauez alde egiten uztea. Edorta Jimenez

-Hemendik aurrera bakarrik jarraitu behar duzu. Xabier Aranburu

Musikari handia zara, eta, **hemendik aurrera**, bakarrik lan egin dezakezu. Eskarne Mujika

26 *hemendik aurrerako*

Orain egungoari eta **hemendik aurrerakoari** begiratu behar diogu. Luis Elberdin

Hemendik aurrerako egunak eternalak izan daitezke niretzat. Xabier Montoia

Eskualde lehor eta epelagoa da **hemendik aurrerakoa**, eta, bihar Zanjan-eraino heltzea lortzen badut, libratu egingo naiz seguru. Jon Arretxe

27 *hortik aurrera*

Hortik aurrera badakit kalera bueltan abiatu ginela, besterik ez. Sonia Gonzalez

Hortik aurrera gauza gutxi dakigu Maddalen gajoari buruz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hortik aurrera, gauza bera errepikatu zuen behin eta berriro, eta funtzionarioak konturatu ziren Korobotxka adimen urriko emakume zaharra besterik ez zela. Jose Morales

Hortik aurrera ate itxia ixten dakit edonorentzat. Hasier Etxeberria

Hortik aurrera, lagunak baino gehiago ginen, inondik ere. Karlos Zabala

Hortik aurrera etorriko omen da gizakiari buruz hitz egitea. Jenaro Garate

Hortik aurrera, oztoporik ez topatzea espero zuen, eta hego-ekialderantz joan ahalko zen, Baikal aintzirako probintzietarantz. Karlos Zabala

28 *hortik aurrerako*

-Esan nahi dut, zu nire laguna zarela, baina ez daukat **hortik aurrerako** asmorik. Gotzon Garate

Hortik aurrerakoak beste batek esan beharko dizkizu. Juan Kruz Igerabide

Hortik aurrerakoari usain txarra hartuko lioke-eta norbaitek. Joxerra Garzia

29 *ordutik aurrera*

Ordutik aurrera inguraketa operazio haren bigarren fasea hasi zen. Joxemari Iturralde

Ordutik aurrera, Brumaireren 18koak Zaharren Kontseilutik atera eta Kode Zibilaren Idazketa Batzordeko egin zuen. Andres Urrutia

Ordutik aurrera, konponbiderik ez. Karlos Zabala

Denbora asko galdua genuen, eta arrisku handia zuen **ordutik aurrera** bideak, negua gainean baitzen. Elizen arteko biblia

Hark baietz erantzun zion eta **ordutik aurrera** urtero joan ohi zen. Askoren artean

Azken-azkenean pena alimale horrek den-dena hartzen baitu bere baitan, eta **ordutik aurrera** negarra baizik ez baita geratzen, negarra, oinazea eta desolazioa. Jon Alonso

Haientzat, astelehenetan Animalien Ongizaterako Klinikako poltsekin iristen hasi zen gizona baino ez da, **ordutik aurrera** geroz eta goizago agertu izan dena. Oskar Arana

Ondorengo elkarrizketak argituko zidan, apika, **ordutik aurrera** zer egin nezakeen. Iban Zaldua

Egongelan egin nuen lo **ordutik aurrera**. Joxan Elosegi

· Ordu arteko bi oilar amorratuek, elkar harturik, soldadu hordia nork zorrotzago eta distiratsuago larrutu eta barregarri laga izan zen **ordutik aurrerako** saioa [...] harik eta mozkorrak beste whisky baten bila alde egin zuen arte. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

adin batetik aurrera (24); **adinean aurrera egin** (11); **aldetik aurrera** (11); **arratsaldea aurrera** (13); **artean aurrera** (17); **asteartetik aurrera** (11); **astelehenetik aurrera** (41); **ate aurrera** (15); **atzekoz aurrera** (62); **atzera aurrera** (121); **atzera eta aurrera** (169); **atzera ez aurrera** (41); **atzetik aurrera** (35)

aurrera abiatu (20); **aurrera agertu** (19); **aurrera agertzeko** (12); **aurrera atera ahal** (27); **aurrera atera nahi** (17); **aurrera aterako** (60); **aurrera ateratzea** (74); **aurrera ateratzen** (55); **aurrera atzera** (14); **aurrera aurkeztu** (13); **aurrera begira ere** (14); **aurrera begira jarri** (16); **aurrera begiratu behar** (14); **aurrera begiratzen** (19); **aurrera bere** (30); **aurrera beste** (25); **aurrera beti** (14); **aurrera bi** (19); **aurrera daiteke** (13); **aurrera darrai** (14); **aurrera dena** (11); **aurrera doala** (30); **aurrera doan** (30); **aurrera doaz** (42); **aurrera doazen** (12); **aurrera edo atzera** (14); **aurrera egin ahal** (40); **aurrera egin ahala** (299); **aurrera egin baino** (12); **aurrera egin behar** (87); **aurrera egin beharra** (22); **aurrera egin dezan** (76); **aurrera egin du** (62); **aurrera egin duela** (12); **aurrera egin dugu** (11); **aurrera egin dute** (23); **aurrera egin ez** (14); **aurrera egin ezinik** (18); **aurrera egin genuen** (20); **aurrera egin nahi** (48); **aurrera egin nuen** (25); **aurrera egin zuen** (189); **aurrera egin zuten** (77); **aurrera eginda** (13); **aurrera eginen** (15); **aurrera eginez gero** (38); **aurrera egingo badu** (18); **aurrera egingo balu** (15); **aurrera egingo du** (34); **aurrera egingo duela** (22); **aurrera egingo dugu** (19); **aurrera egitea erabaki** (29); **aurrera egitea lortu** (17); **aurrera egiteak** (15); **aurrera egitean** (13); **aurrera egiteko aukera** (46); **aurrera egiteko modu** (12); **aurrera egiten ari** (26); **aurrera egiten badu** (26); **aurrera egiten du** (24); **aurrera egiten duen** (18); **aurrera egiten dute** (12); **aurrera egiten ez** (20); **aurrera egiten zuen** (27); **aurrera egiten zuten** (11); **aurrera egitera** (12); **aurrera egiterik** (13); **aurrera ekarri** (12); **aurrera ekin** (12); **aurrera eman** (11); **aurrera eraman ahal** (18); **aurrera eraman nahi**

(19); **aurrera eraman zuen** (13); **aurrera eraman zuten** (27); **aurrera eramandako** (12); **aurrera eramango** (45); **aurrera eramatea** (46); **aurrera eramaten** (52); **aurrera eta atzera** (95); **aurrera eta aurrera** (15); **aurrera eta aurrera** (15); **aurrera eta ez** (13); **aurrera ez atzera** (41); **aurrera ez da** (12); **aurrera ez egitea** (13); **aurrera ez zuen** (11); **aurrera ezin** (21); **aurrera gertatu** (11); **aurrera goaz** (22); **aurrera gure** (12); **aurrera hasi zen** (18); **aurrera hasiko** (22); **aurrera heldu** (15); **aurrera ibiltzen** (18); **aurrera iritsi** (35); **aurrera izango** (15); **aurrera jarrai** (16); **aurrera jarraitu behar** (17); **aurrera jarraitu nahi** (15); **aurrera jarraitu nuen** (17); **aurrera jarraitu zuen** (97); **aurrera jarraitu zuten** (27); **aurrera jarraituko du** (16); **aurrera jarraituko duela** (14); **aurrera jarraituz** (16); **aurrera jarraitzea** (40); **aurrera jarraitzeko** (103); **aurrera jarraitzen du** (52); **aurrera jarraitzen duela** (11); **aurrera jarraitzen dute** (11); **aurrera jarraitzen zuen** (21); **aurrera jo zuen** (29); **aurrera jo zuten** (14); **aurrera joan ahala** (99); **aurrera joan zen** (37); **aurrera joan ziren** (23); **aurrera joateko** (17); **aurrera joaten** (23); **aurrera jotzea** (11); **aurrera jotzeko** (13); **aurrera jotzen** (13); **aurrera makurtu zen** (13); **aurrera nire** (13); **aurrera nola** (16); **aurrera pauso** (19); **aurrera saiaz** (25); **aurrera saiazek** (11); **aurrera segi** (12); **aurrera segitu zuen** (24); **aurrera segituko** (14); **aurrera segitzeko** (34); **aurrera segitzen du** (16); **aurrera zihoala** (32); **aurrera zihoazela** (16); **aurrera zihoazen** (33)

auziak aurrera (15); **baina aurrera egin** (25); **baina handik aurrera** (16); **baina hemendik aurrera** (17); **baina hortik aurrera** (52); **bake bidean aurrera** (11); **bake prozesuak aurrera** (26); **bake prozesuan aurrera** (22); **batean aurrera** (33); **batek aurrera** (24); **baten aurrera** (16); **batzuk aurrera** (12); **begien aurrera** (13); **behar dugu aurrera** (11); **berak aurrera** (12); **bere aurrera** (37); **beti aurrera** (38); **bide horretan aurrera** (16); **bidean aurrera egin** (20); **bidean aurrera egiteko** (33); **bidegoiango aurrera** (12); **bihartik aurrera** (91); **bizitza aurrera** (13); **bizitzak aurrera** (12); **bizitzan aurrera** (17); **buruz aurrera** (13); **da aurrera egitea** (12); **da aurrera egiteko** (15); **da hemendik aurrera** (29); **datorren astetik aurrera** (16); **datorren urtetik aurrera** (25); **dela aurrera** (19); **denbora aurrera joan** (11); **denbora aurrera zihoan** (12); **denborak aurrera egin** (49); **denboran aurrera** (12); **dezagun aurrera** (17); **dira aurrera** (32); **dira hemendik aurrera** (13); **doa aurrera** (11); **du aurrera egin** (22); **du aurrera egiteko** (11); **du gaurtik aurrera** (13); **du hemendik aurrera** (19); **duela aurrera** (21); **dugu hemendik aurrera** (14); **dut aurrera** (23); **dute gaurtik aurrera** (11); **duzu aurrera** (11)

edo aurrera (24); **egin du aurrera** (30); **egin dute aurrera** (20); **egin zuen aurrera** (67); **egin zuten aurrera** (49); **egingo du aurrera** (28); **egingo dute aurrera** (13); **egitasmoa aurrera** (20); **egitasmoak aurrera** (13); **egiten du aurrera** (30); **egiten zuen aurrera** (15); **egiten zuten aurrera** (11); **eguerditik aurrera** (20); **egun hartatik aurrera** (32); **egun horretatik aurrera** (12); **egunak aurrera egin** (15); **egunetik aurrera** (14); **egunkaria aurrera** (16); **ekainetik aurrera** (14); **ekimena aurrera** (16); **ekimenak aurrera** (17); **epaiketak aurrera** (14); **epailearen aurrera eraman** (22); **erdialdetik aurrera** (14); **ere aurrera egin** (34); **erreforma aurrera** (12); **erregearen aurrera** (29); **etxe aurrera** (13); **etzitik aurrera** (15); **ez aurrera ez** (42); **ez da aurrera** (14); **ez du aurrera** (26); **ez zen aurrera** (13); **ez zuen aurrera** (31); **familia aurrera** (11); **gabe aurrera** (39); **gauak aurrera** (12); **gauerditik aurrera** (12); **genuen aurrera** (21); **gero aurrera** (17); **hamarkadatik aurrera** (15); **hamarralditik aurrera** (13); **handik aurrera ez** (28); **haren aurrera** (23); **hau aurrera** (32); **hemendik aurrera ere** (31); **hemendik aurrera ez** (38); **hemendik aurrera zer** (15); **herria aurrera** (45); **honek aurrera** (16); **honetan aurrera** (18); **hori aurrera eramateko** (18); **horiek aurrera** (22); **horrek aurrera** (18); **horrekin aurrera** (11); **horretan aurrera egiteko** (11); **hortik aurrera ez** (22); **hortik aurrera ezer** (16); **hura aurrera** (11); **ikerketak aurrera** (14); **iraiteltik aurrera** (43)

jarraitu zuen aurrera (11); **jaunaren aurrera** (22); **justiziaren aurrera** (19); **kalean aurrera** (27); **konponbidean aurrera** (11); **kopan aurrera** (20); **korridorean aurrera** (35); **lanak aurrera** (13); **maiatzetik aurrera** (15); **martxotik aurrera** (21); **mendetik aurrera** (44); **minutuak aurrera joan** (23); **muturrez aurrera erori** (11); **nik aurrera** (15); **nire aurrera** (13); **normalizazioan aurrera** (11); **nuen aurrera** (14); **orain aurrera** (11); **orduak aurrera** (16); **oso aurrera** (12); **ostiraletik aurrera** (13); **otsailetik aurrera** (13); **partida aurrera** (32); **partidak aurrera egin** (20); **pauso bat aurrera** (13); **plana aurrera** (43); **planak aurrera** (19); **proiektua aurrera** (31); **proiektuak aurrera** (37); **proiektuarekin aurrera** (12); **proposamena aurrera ateratzeko** (12); **proposamenak aurrera** (35); **prozesua aurrera** (31); **prozesuak aurrera egin** (27); **prozesuak aurrera egingo** (16); **prozesuak aurrera egiteko** (13); **prozesuan aurrera egiteko** (25); **ta segi aurrera** (11); **taldea aurrera** (17); **txapelketan aurrera** (11); **udatik aurrera** (12); **une batetik aurrera** (14); **une hartatik aurrera** (20); **une horretatik aurrera** (33); **urrats bat aurrera** (19); **urtarriletik aurrera** (32); **urteak aurrera** (47); **urteek aurrera egin** (16); **urteetan aurrera** (16); **uztailetik aurrera** (14); **zelai erditik aurrera** (21); **zen aurrera atera** (13); **zen handik aurrera** (13); **ziren aurrera** (15); **zituen aurrera** (16); **zortzietatik aurrera** (11); **zuela aurrera** (17); **zuen aurrera egin** (26); **zuen handik aurrera** (15)

---

aurrerabide **1** zerbaiten bilakaeran gertatzen den aurrerapena, besterik aipatzen ez bada, gizadiarena.

Konkistako eta haren **aurrerabideko** nahasmenduan, gauza gehienak aldatu egin ziren izatez; haiek adierazteko, usadio berriekin zerikusirik handiena zuten latinezko hitz zaharrez baliatu beharra izan zen. Iñaki Iñurrieta

Zigorraren ordez, zorionak eman dizkiote ikerketa zentroari, eta esan ere esan dute emaitza horiek zientziaren **aurrerabide** direla. Berria - Gaiak

Aurrerabidean ikusten du Reala, eta jokatuz lagundu nahi du. Berria - Kirola

Martxoa edo apirila iristean baratzetako udareondo eta mertxikondo ederren **aurrerabideari** begira egoten dira. Koro Navarro

Dena ezin hobeki, bere ondotik negozioak izango zuen **aurrerabidea** salbu. Patxi Zubizarreta

Ez dut, halaber, ekintza fundatzaile batera edo kontzientzia eratzaile batera murriztu nahi izan arrazionaltasunaren ostertz orokorra, arrazionaltasun orokor honetatik askatzen direlarik pittinka-pittinka medikuntzaren **aurrerabidea**. Xabier Arregi

Giza genetikaren **aurrerabidearekin**, horra agertu nola eremu delakoa aipatzea, banako horren osaera genetikoa aipatzea beste zen, azken batean. Juan Garzia

2 *iz* aurrera egiteko modua edo aukera.

Aurrerabiderik ez zuen herri txiki hartako kaleetan zehar. Eskarne Mujika

Zertaz biziko zen hiria, nola lortuko genuen **aurrerabidea** eta aberastasuna eta erosotasuna, lanik egin ezean! Karlos Linazasoro

Arrakasta eta **aurrerabidea** esaten zaiona ezagutu ez arren, bizimodu lasai eta baketsua ote du? Ibon Uribarri

Kolonialismoa naturari etekina ateratzen eta herria **aurrerabidean** bultzatzen ahalegintzen zen. Gotzon Garate

Aurrerabiderik gabeko puntura iritsi ziren, nondik nora jo jakin gabe. Iñaki Mendiguren

Ba, den-denek suma dezaketena: ukelelea jotzen duen neska euskaldun batekiko harremanak **aurrerabide** gutxikoak izaten direla. Bernardo Atxaga

-Aurrerabideari hesiak jartzea, atzera begira bizitzea. Karlos Linazasoro

3 ***aurrerabidea eman*** bide eman.

Eta bukatzen da soilik **aurrerabidea ematen** baldin bazaio. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gertatzen den aurrerabide (3)

bizitzaren aurrerabidean (4)

aurrerabiderik ematen (3); **aurrerabiderik ez** (4); **aurrerabiderik gabe** (3); **beste aurrerabiderik** (3)

---

aurreragarri *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) izond* aurrera eginarazten duena; aurrera egiten duena. ik **aurrerakor**; **progresibo**.

Horiekin batera, azpimarratzekoak dira dekretu egitasmoak jaso dituen hainbat alderdi **aurreragarri**, hala nola herritarrak euskaraz artatzeko neurriak bultzatzea, Zerbitzu Zentraletan, edo euskara planak egitera derrigortzea eremu diskriminatuetako udalak. ETC-prentsa

Gobernuaren erabaki **aurreragarri** hau babestu behar dugu, euskararen mesederako izateaz gain, gizartearen normalizazioaren onerako baita. ETC-prentsa

---

aurrerago ik **aurrera** **9**.

---

aurreragoko *izond* lehentasuna duena.

Eta Angelok gripea aipatu hutsarekin niri tifusa etorri zitzaidanean burura, eta baita tuberkulosia edo pleuresia ere, gurasoekin gogoratzea baino **aurreragoko** lana izan nuen. Anjel Lertxundi

Salatzeko titulua dakarren egintza baino **aurreragokoa** izan behar du legeak. Andres Urrutia

Bost axola zaidak; bazeuzkaat **aurreragoko** kezkak. Anton Garikano

Wimbledon eta Sheffieldeko itxitura-zelaietan bazuten orain **aurreragoko** lanik. Harkaitz Cano

-Bai, baina oraindik **aurreragoko** lanak badituzu. Xabier Etxabe

---

aurreraka **1** *adlag* aurrerantz.

Gizonak **aurreraka** begiraturik, begirakune galdetzailea josia zioten neska gazteak begiztatu zituen. Patxi Zubizarreta

Gero, agudo joaten zen **aurreraka** aurkariaren erantzuna bilatu eta pilota apurtzeko. Berria - Kirola

Zazpigarren edo zortzigarren mailan, estropezu egin zuen, eta eskua luzatu nion **aurreraka** eroriko zelakoan; baina ukatu egin zuen nire laguntza, eta orekari eutsi zion. Bernardo Atxaga

Lau hankatxo **aurreraka** luzatuta, bere xulo biribiletik hurraren itxurako gorpuztxoa noiz abian hasiko, erne. Pello Zabala

Gero, **aurreraka** jo zuen, irteera aldera. Aritz Gorrotxategi

Aurreraka erori zen, ahuspez, hain zorte txarrarekin, non eskumuturra bihurritu baitzitzaion, oihuari eta negarrari ekiten ziola, ai eta ai. Joan Mari Irigoien

2 *atzera-aurreraka*

Saidek bakarrik utzi nauenetik nire autobusaren inguruan ibili naiz **atzera-aurreraka**, hurbiltzen ziren gainerako pasaiarien itxurari erreparatuz, eta behingoz abiatzeko momentua noiz helduko ote zen galdetuz neure buruari. Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aurreraka eta atzeraka (3)

---

aurrerakada *iz* aurrerapena, aurreranzko pausoa.

Ezaguna da hauteskunde baten ostean talde politiko guztiek, galtzaile edo garaile izan, datuak aztertzerakoan nolabaiteko **aurrerakada** bat bilatzeko izaten dituzten komeriak. Iñaki Heras

Baina buruko soilguneen **aurrerakada** goiztiarregiak ez zuen gauza bera aldarrikatzen: gaztea bai, baina gero eta gutxiago. Fernando Morillo

Inolako sakrifiziok ezin dezake inoiz, inon, alemaniarren **aurrerakada** geldiarazi. Josu Zabaleta

Horrek **aurrerakada** batzuk ekarri ditu, batez ere arlo berezietan: irakaskuntzan, administrazioan eta komunikabideetan. Berria - Euskal Herria

Bertsolaritzaren apustuei aurre egiten jakingo dugula sinetsirik, bertsogintzaren **aurrerakadak** nondik nora jo dezakeen aurrikusten saiatuko naiz. Andoni Egaña

---

aurrerakarga *iz* aurrerantz higituriko karga. ik **atzerakarga**.

Bi urte betetakoan, ordea, ia egun erdi bateko, 12 ordu pasako **aurrerakarga** pilatu zaigu. Pello Zabala

---

aurreraketa *iz* aurrerapena.

Ez du esan nahi **aurreraketa** asko ikusiko denik, baina alde handiak ateratzea zail izango da, eta edozein hutsek lasterketa goitik behera alda dezake. Berria - Kirola

---

aurrerakin *iz* dagokion garaia baino lehen ordaintzen edo jasotzen den diru kopurua. ik **aurrerapen 5**.

Alazneri aurreko larunbata etorri zitzaion gogora, mailukada basati baten modura, beldurrezko film bateko **aurrerakin** gordina balitz bezala: nola joan zitzaion atzetik Imanoli, nola amaitu zuen hark putetxe aurrean. Fernando Morillo

Ezkerreko hatzekin billeteei eutsi, eta beste eskuaz paper-puska batean idatzi zuen hogeita bost errublo hartu zituela, Estatuaren diru-paperetan, salduriko arimengatik jaso beharreko kopuruaren **aurrerakin** gisa. Jose Morales

Horrek inprentako gastuak ordaintzeko baino ez du ematen, eta itzulpen gastuak, egile eskubideak eta **aurrerakina** ere ordaindu beharra dago. Berria - Kultura

---

aurrerako 1 *izlag* 'aurrera'ri dagokion izenlaguna.

Zakurrak ere ez zuen **aurrerakorik** egin. Joxemari Urteaga

Hainbeste predikutan erabilitako indarrak herriko jauntxoak kutsatu zituen, eta hantxe hasi omen zen -jarraitu esan beharko genuke, bi urteko gerrak eta hiru urteko deserriak egindako tartea kontuan hartuz- Kolonbiako kafearen **aurrerako** bidea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hala, arazoak zituen herrialdeari bi irteera baino ez zitzaizkion geratu: doikuntza atzeragarri bat egin lehenbailehen, edo **aurrerako** ihesa, gero eta epe motzagoko zorrak metatuz. Koro Navarro

Herr Öchler eta frau Öchler, hala ginen jende **aurrerako**, hori zen ituna. Anjel Lertxundi

Monasterioarekin batera, uhartea ere erakargarria zen, mende batzuk lehenago erromatarrek mundu parte hartan ezagutzen ez ziren gereziondoak ekarri zituztelako, Itsas Beltzak bustitzen dituen urrutiko lurraldetik, **aurrerako** asmo handirik gabe. Felipe Juaristi

---

aurrerakoan ik **aurrera 12**.

---

aurrerakoi *izond/iz* egitez eta pentsamoldez, eta bereziki gizarte gaietan, aurrerabidearen aldekoa dena.

Arrazoi moderno edo ideologia **aurrerakoi** edo kristau balio guztietatik kanpo dago. Joseba Zulaika

Mutil azkar eta zintzotzat jarri zuen; sozialista izan arren, euskararen aldekoa omen zen, eta **aurrerakoietakoa**. Ramon Saizarbitoria

Irungo alkateak, famatzen hasita, beti ideia eta ikusmolde **aurrerakoien** alde egotea famatu zion Carlosi. Joxerra Garzia

Sarak ideia **aurrerakoiak** baitzituen, eta haren amak atzerakoiak, eta bataren zein bestearen mihiak ez baitzuen atzera egiten, behin lasterrari ekinez gero, ukoak ukoari dei egingo balio bezala. Joan Mari Irigoien

Urrats eder eta **aurrerakoia**, bertze xoko batzutan ere agian loratuko dena. Herria

Bere pertsonaia maisu sentibera bat zen, irizpide **aurrerakoiak** zituena, gaizki ulertua eta gaizki tratatua. Koro Navarro

Aurrerakoi izan ondoan, horretan gelditu da Eliza, haratago joan behar zuela ohartu gabe. Xipri Arbelbide

Siadeco sortu zuen, esan bezala, era guztietako aldaketa ekonomiko, demografiko, urbanistiko eta hezkuntzazkoak gertatzen ari ziren lur honetan proposamen zentzuzko eta **aurrerakoiak** egiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Injustua da, hondarrean, hainbeste sufritzen duen populu baten gudari-talde **aurrerakoienak** gaztigatzea. Itxaro Borda

Litekeena da islamiar talde **aurrerakoiak** inoiz boterera iristea? Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
abertzale eta aurrerakoi (4); **aurrerakoi batean** (3); **aurrerakoi eta abertzale** (3); **aurrerakoi guztiekin** (3); **ikuspegi aurrerakoi** (3); **proiektu aurrerakoi** (3)
abertzalea eta aurrerakoia (3); **aurrerakoia behar duela** (3); **aurrerakoia da** (6); **aurrerakoia izan** (4); **gobernu aurrerakoia** (3); **politika aurrerakoia** (4)
abertzale eta aurrerakoiak (5); **politika aurrerakoiak** (7); **sozial aurrerakoiak** (3)
aurrerakoiei botoa (3)
abertzale eta aurrerakoiekin (3)
aurrerakoien arteko (3)

demokratiko aurrerakoiko (3)

---

aurrerakoitasun *iz* aurrerakoia denaren nolakotasuna.

Aurrerakoitasuna politikagintzaren beste ataletan gauzatzen da, hain zuzen ere, langile klasetik at ere atxikipenak lor daitezkeen eremuetan. Berria - Euskal Herria

Bigarrenean, islamdarrak gainerako ikasleengandik apartatzeko iniziatiban, debatea da ez al gauden **aurrerakoitasun** faltsuen izenean makilatu nahi den arrazakeria baten aurrean. Anjel Lertxundi

Gure **aurrerakoitasuna** itxura hutsa da askotan, hitzontzikeria besterik ez. Migel Angel Mintegi

---

aurrerakor *izond* aurrera joateko joera duena.

Espazioari dagokionez, bertan ez dago bere baitan **aurrerakorraren** eta itzulkorraren arteko ezberdintasunik, zeren berak agregatu bat osatzen baitu, baina ezein ilararik ez, bere zatiak osotara aldi berean diren heinean. Ibon Uribarri

---

aurrerakuntza *iz* aurrerapena.

Zientzia eta teknologietan gertatu diren **aurrerakuntzek** arma izugarriak jarri dizkigute eskura, hain handiak, non orain ehun urtekoekin konparatuz, haiek jostailuak baitirudite. Pello Salaburu

Gizabidez eskatu izan baliote, aitak dirua eskatu gabe ere utziko zien lurra: aita ez zen **aurrerakuntzaren** aurkakoa. Koldo Biguri

Bat-bateko **aurrerakuntzak** jarrietan eginiko esperimentuetatik etorri izan dira askotan. Andoni Egaña

Gizartean nagusi diren indarren ezagutza, horien kordokatzeak sortarazi dituzten kausak, **aurrerakuntza** zindo batek bere aurrean daukan baliabidea, hil-biziko auzia gertatu zaio gure zibilizazioari. Joxe Azurmendi

-Ezin interesgarriagoa da, baita ere, herrialde honetan zer-nolako **aurrerakuntzak** izan ditugun medikuntzan. Mirentxu Larrañaga

Azken errege-ordenantzak ikertzerakoan, kontuok gorde ditugu beren beregi: gizartearen funtsezko ordena, zintzotasun publikoa, ondareen segurtasuna eta **aurrerakuntza** orokorraren inguruko guztiak. Andres Urrutia

Bestalde, azken 40 urteetan **aurrerakuntza** handiak izan dira antikontzeptiboen arloan. Luis Elberdin

Baliabide digitalen bidez egindako lanak aurkeztuko dituzte; horrela, artea egiteko teknikak gaur egungo **aurrerakuntzetara** egokitu direla erakutsiko du azokak. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurrerakuntza handiak (4)

---

aurreramendu ik **aurrerapen**; **aurrerakuntza**; **aitzinamendu**.

Pozik nago hemen gizakia ezagutzen **aurreramendutxo** batzuk egin ditudalako, baina aski dela iruditzen zait. Josu Zabaleta

Bestalde, ekoizpenaren globalizazio-prozesuaren aurrerabideak ere, informazioaren teknologien eta telekomunikazioaren **aurreramendu** ikusgarriek areagoturik, nazioen arteko konkurrentzia modu berri bat sorrarazi zuen. Koro Navarro

Horrela jarraituz gero, bikoiztu eta bikoiztu, laster aurkituko da Espainiako aberastasunen ezinaren kausaren **aurreramendua**. Iñaki Iñurrieta

Doktorea gizaki mailaz beheratuen arteko adimen mailak eta **aurreramenduak** aztertzen ari zen, bere aurrean zituen bi animalia haien sotiltasun mailak konparatzen. Josu Zabaleta

Alor honen ezagutzak **aurreramendu** handia izan zuen 1974an nerbio optikoan bi zelula mota zeudela aurkitu zenetik. Josu Zabaleta

---

aurrerantzean **1** *adlag* hitz egiten edo aipatzen den unetik aurrera.

Aurrerantzean, legearen kontrako jardunean murgilduko dira. Berria - Mundua

Eta **aurrerantzean** hori izanen da politika urtegiak egiten direnean, segurtasunagatik, estetikagatik, bai eta arrazoi sentimentalengatik ere. Edurne Elizondo

Honelako mamuak gobernatuta, zail egiten da zinez tentsiorik gabeko elkarbizitza ikustea **aurrerantzean**. Iñigo Aranbarri

Bestela ere erabakiak hartzeko garaia zen hura guztiontzat, ikasketetan nolako bidea hartu halakoxea izan baitzitekeen **aurrerantzean** zure bizimodua. Xabier Mendiguren Elizegi

Halaxe aritu naiz beti eta halaxe arituko naiz **aurrerantzean** ere. Koro Navarro

Aurrerantzean ezer gertatu ez balitz bezala jarraitzen ahalegindu ginen. Xabier Paya

-Baina **aurrerantzean** oso kontuz ibili beharko dugu -esan zion, kalabaza-zukuaren trago eder bat eginez. Iñaki Mendiguren

Alde egin dute, eta segur naiz **aurrerantzean** berendia honi uste ez zuen posibilitate batek eragotziko diola loa erraz hartzea. Koldo Izagirre

Errukirik ez **aurrerantzean**; haren izena, haren familia, gure arteko harremana... ahaztu egin behar nuen dena. Anjel Lertxundi

Semitismo judua, kristaua edo musulmana izango da **aurrerantzean** ere munduaren jabea, guztiz aldaera bereziak hartuko ditu.Sukarragatik eldarnioak izan zituen hainbat egunetan, eta **aurrerantzean** ez zuen jaikitzerik izan. Josu Zabaleta

2 ***aurrerantzeko*** *izond*

Itsasoaren egoera zakarraren beldurrez, **aurrerantzeko** salbamendu lanak posible izan daitezen ontzia ur gainean mantentzea lortu zuten. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurrerantzean aski izango (3); **aurrerantzean beharko ez** (3); **aurrerantzean bere** (5); **aurrerantzean beste** (13); **aurrerantzean bi** (3); **aurrerantzean bide** (3); **aurrerantzean egin beharreko** (5); **aurrerantzean egingo** (6); **aurrerantzean eman** (4); **aurrerantzean era** (3); **aurrerantzean ere euskal** (4); **aurrerantzean ere ez** (10); **aurrerantzean ere hala** (6); **aurrerantzean ere horrela** (5); **aurrerantzean espainiako** (4); **aurrerantzean etorriko** (4); **aurrerantzean europako** (3); **aurrerantzean ez da** (5); **aurrerantzean ez du** (5); **aurrerantzean ez dut** (3); **aurrerantzean ez duzu** (3); **aurrerantzean ez duzue** (3); **aurrerantzean ez naiz** (3); **aurrerantzean ez zen** (6); **aurrerantzean ez zuela** (3); **aurrerantzean ez zuen** (9); **aurrerantzean ezin izango** (4); **aurrerantzean ezingo** (4); **aurrerantzean gehiago** (4); **aurrerantzean gerta** (4); **aurrerantzean gizakirik biziko** (3); **aurrerantzean gure** (4); **aurrerantzean haien** (4); **aurrerantzean halako** (3); **aurrerantzean horrela** (3); **aurrerantzean inork** (3); **aurrerantzean izango duen** (3); **aurrerantzean kalterik egin** (3); **aurrerantzean kontu** (3); **aurrerantzean lan** (5); **aurrerantzean nire** (7); **aurrerantzean orain** (3); **aurrerantzean zer egin** (6); **aurrerantzean zuen** (3)

baina aurrerantzean (31); **behar dugu aurrerantzean** (3); **beharko dute aurrerantzean** (5); **beteko du aurrerantzean** (3); **bidea aurrerantzean** (3); **da aurrerantzean ere** (10); **da han aurrerantzean** (3); **dela aurrerantzean ere** (3); **diat aurrerantzean** (3); **dik aurrerantzean** (3); **dio aurrerantzean ere** (4); **dira aurrerantzean ere** (4); **direla aurrerantzean** (7); **ditugu aurrerantzean** (3); **ditzte aurrerantzean** (5); **du aurrerantzean ere** (4); **duela aurrerantzean ere** (3); **duelako aurrerantzean** (3); **dugu aurrerantzean ere** (5); **dut aurrerantzean ere** (4); **dute aurrerantzean ere** (3); **duzu aurrerantzean** (4); **duzue aurrerantzean** (3); **ea aurrerantzean ere** (3); **egingo du aurrerantzean** (3); **egingo dute aurrerantzean** (3); **egongo dira aurrerantzean** (3); **ere aurrerantzean** (7); **eutsiko dio aurrerantzean** (3); **ez aurrerantzean** (6); **ez da aurrerantzean** (6); **ez du aurrerantzean** (6); **ez duela aurrerantzean** (3); **ez dute aurrerantzean** (6); **ez zara aurrerantzean** (3); **ez zen aurrerantzean** (4); **ez zieten aurrerantzean** (3); **ez zuen aurrerantzean** (3); **gara aurrerantzean** (3); **genuela aurrerantzean** (3); **han aurrerantzean gizakirik** (3); **hau aurrerantzean** (3); **hori aurrerantzean** (4); **izanen da aurrerantzean** (3); **izango aurrerantzean** (16); **izango baita aurrerantzean** (4); **izango da aurrerantzean** (27); **izango dira aurrerantzean** (6); **izango ditu aurrerantzean** (3); **izango du aurrerantzean** (11); **izango dute aurrerantzean** (7); **izatea aurrerantzean** (3); **naiz aurrerantzean** (6); **nintzen aurrerantzean** (4); **zela aurrerantzean** (6); **zieten aurrerantzean kalterik** (3); **ziren aurrerantzean** (10); **zuten aurrerantzean** (4)

---

aurrerapauso *iz* aurrera egiten den pausoa.

Baina horrela, pixkanaka, **aurrerapausoak** egiten dituala konturatuko haiz. Fernando Morillo

Bertsogintzaren **aurrerapausoak** auto-ebaluaketaren bidetik heldu dira. Andoni Egaña

Horiek denak **aurrerapausoak** izan ziren geroxeago demokrazia errepublikazalearen teoria zibilizatua idazteko, baliagarria eta desiragarria bera gure garairako. Esteban Antxustegi

Ofizialtasunaren argia errebindikatzen zen noski, baina zurubia hain zut paratua zen, non **aurrerapauso** bakoitza ezin eta debalde zirudien. Itxaro Borda

Aurrerapauso handi bat gertatu zen hogeigarren mendearen hasieran, gizaki bizi baten garuna estimulatu ahal izan zelarik. Irene Aldasoro

Etxera itzultzen nintzenean, atseginez, degradazio prozesuaren **aurrerapausoak** errepasatzen nituen. Iban Zaldua

Ongi egiten nuen idazlan bakoitza, azterketa bakoitza gero, **aurrerapauso** bat zen, nik bizimodu hobea izango nuelako itxaropena. Joseba Urteaga

Ekonomikoa mundu fisiko naturaletik aparteko sistematzat ulertzean, politika ekonomikoak eta garapenaren **aurrerapausoen** neurketak moneta terminoetan beste ezertan ez dira oinarritzen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Maila politikora iritsi ez bada ere, konforme ez dagoen kultura bat eratzen ari da, eta **aurrerapausoak** emango ditu aurki alternatiba politiko bat izateko. Berria - Harian

Baina ortografian izan ezik, ez zen beste **aurrerapausorik** egin. Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldeko aurrerapauso (3); **alorrean aurrerapauso** (3)

aurrerapauso bat da (9); **aurrerapauso bat eman** (7); **aurrerapauso batzuk** (3); **aurrerapauso esanguratsuak** (3); **aurrerapauso garrantzitsua da** (3); **aurrerapauso garrantzitsua eman** (7); **aurrerapauso garrantzitsua izan** (3); **aurrerapauso garrantzitsuak egin** (3); **aurrerapauso garrantzitsutzat jo** (3); **aurrerapauso gisa** (3); **aurrerapauso handi bat** (3); **aurrerapauso handia da** (9); **aurrerapauso handia dela** (6); **aurrerapauso handia eman** (13); **aurrerapauso handia emango** (11); **aurrerapauso handia emateko** (6); **aurrerapauso handia izan** (11); **aurrerapauso handia izango** (8); **aurrerapauso handiak egin** (15); **aurrerapauso handiak eman** (11); **aurrerapauso handitzat jo** (4); **aurrerapauso horiek** (5); **aurrerapauso iritzi** (3); **aurrerapauso itzela** (8); **aurrerapauso nabarmena** (4); **aurrerapauso nabarmenak eman** (3); **aurrerapauso nabarmenik** (9); **aurrerapauso sendoak** (3); **aurrerapauso txikia** (3); **aurrerapauso txikiak** (5); **aurrerapauso ugari egin** (3); **aurrerapauso ugari eman** (3); **aurrerapauso zehatzak** (3)

baina aurrerapauso (4); **beste aurrerapauso bat** (5); **bidean aurrerapauso handia** (3); **du aurrerapauso** (3); **ere aurrerapauso** (5); **eusteko aurrerapauso** (3); **ez da aurrerapauso** (4); **hau aurrerapauso** (3); **izateko aurrerapauso handia** (4); **taldeak aurrerapauso** (4); **zenbait aurrerapauso** (3)

aurrerapausoa da (18); **aurrerapausoa dela iritzi** (3); **aurrerapausoa dela uste** (5); **aurrerapausoa delako** (5); **aurrerapausoa eman du** (5); **aurrerapausoa eman dute** (4); **aurrerapausoa eman zuen** (6); **aurrerapausoa izan da** (3); **aurrerapausoa izango da** (4); **aurrerapausoa litzateke** (3); **aurrerapausoa zela** (3); **sekulako aurrerapausoa** (3)

aurrerapausoak direla (3); **aurrerapausoak egin dira** (4); **aurrerapausoak egitea** (4); **aurrerapausoak egiteko** (4); **aurrerapausoak egiten ari** (4); **aurrerapausoak eman ahal** (3); **aurrerapausoak eman behar** (6); **aurrerapausoak eman dira** (5); **aurrerapausoak eman nahi** (6); **aurrerapausoak emango** (4); **aurrerapausoak ematea** (15); **aurrerapausoak ematen ari** (7); **aurrerapausoak ez** (3); **aurrerapausoak izan** (4); **aurrerapausoak kontuan** (3); **aurrerapausoak nabaritu** (3); **bidean aurrerapausoak** (6); **egin diren aurrerapausoak** (4); **egindako aurrerapausoak** (7); **ere aurrerapausoak** (4); **horretan aurrerapausoak eman** (3)

aurrerapausoen berri (4)

aurrerapausorik egin (3); **aurrerapausorik ematea** (3); **aurrerapausorik ez** (9); **aurrerapausorik handiena** (4); **da aurrerapausorik eman** (3); **den aurrerapausorik** (3); **ez da aurrerapausorik** (5); **inolako aurrerapausorik eman** (3)

aurrerapausotzat du (3); **aurrerapausotzat jo du** (3); **aurrerapausotzat jo zuen** (3)

---

aurrerapausu ik **aurrerapauso**.

---

aurrerapen **1** *iz* aurreranzko, egoera hobe bateranzko edo maila gorago bateranzko urratsa.

Seaska-k ikusten du hor **aurrerapen** bat bainan arrangura frango ere agertzen du, erranez negoziaketak behar direla segitu hezkuntza ministeritzarekin. Herria

Jotzeko teknikak izugarrizko **aurrerapena** izan du. Koldo Izagirre

Tripa beterik eta mutu, **aurrerapen** teknologikoa gerorako aterabide bakarra zela sinetsirik, bortxaz anitzetan, desagertu ziren lurraren azaletik ehun milaka populuen ingumak zerabilzkidan buru zokoan dantzan. Itxaro Borda

Eta hari ematen nion nire **aurrerapenen** berri. Arantxa Iturbe

Zergatik ez nuke **aurrerapenik** egingo, azken finean? Xabier Olarra

Zientziak miragarrizko **aurrerapenak** egin ditik horretan. Antton Olano

Ahots sintesiaren inguruko ikerketak **aurrerapen** handiak ekarri ditu oharmenaren alor honetan. Lourdes Oñederra

Aurrerapen handia izan zen hogeita hiru botoidun soinu hura. Iñigo Aranbarri

Hankei eraginez kolunpioa aurrera eta atzera erabiltzeko gauza dela deskubrituko du, eta **aurrerapen** bakoitza garaipen bat bezala biziko du. Arantxa Iturbe

Nonbait, etxetik alde egin zuen neskatoaren familia, aita bereziki, oso haserre ari zen etengabeki deika bulegora galdetuz ea inolako **aurrerapenik** izan zen azken hogeitalau orduetan. Joxemari Iturralde

Zientziaren **aurrerapen** guztiak saiatu arren, ez zuen hura salbatzerik lortu. Anjel Lertxundi

Bere herriarentzat **aurrerapen** izugarria izango zela uste zuen: idazten jakitea, cherokeez idazten jakitea! J.M. Olaizola "Txiliku"

2 *iz* gizadiaren aurrerapena.

Aurrerapenak gero eta txikiagoa bihurtzen du mundua gizon-emakumeentzat. Koldo Biguri

Gero, herri galduetara ere **aurrerapena** iristen hasi zenean ura eta argindarra eraman zituzten etxeetara, baina hori guztia ez zen aski izan herriaren hustea galarazteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizakiak ez dira untxi, eta hauxe da **aurrerapenaren** berezko ondorioa: guk geuk antolatu behar izatea afera. Joxe Austin Arrieta

Zergatik inork hainbeste lan hartu gizateriaren **aurrerapenaren** alde? Anton Garikano

3 *iz* aurreratzen den tartea edo denbora-hedadura.

Urtebeteko **aurrerapenarekin** esan zigun gure arreba dibortziatu egingo zela. Mikel Hernandez Abaitua

Espero dut, egunkarien bidez ez jakitea berria, ez behintzat hileta-elizkizunera garaiz iritsi ahal izateko **aurrerapenez**. Mirentxu Larrañaga

Zuen aldean orain zortzi orduko **aurrerapena** dugu. Patxi Zubizarreta

Hernanin bestalde, Donostian bezalaxe, kanpai-hotsez iragartzen omen dute begiraleek, desarraren tximista ikusi ahala, bizpahiru segundoko **aurrerapenez**. Txillardegi

4 *iz* egingo den lan bat nolakoa izango den aurrez adierazten duen gauza.

Wintercase jaialdiaren **aurrerapen** gisa ariko dira, gaur, Barakaldo antzokian, New Yorkeko The Magnetic Fields eta Madrilgo Astrud taldeak. Berria - Kultura

Jacken aldizkarian ipuin bat eta gerora argitaratu gabe geratuko ziren bi poema-libururen **aurrerapenak** agertu ziren. Iban Zaldua

Danborrada Inauterien **aurrerapen** bat, iragarpen bat dela, honetaz diharduten idazle gehienek aipatzen duten gaia da. Askoren artean

Adin horretan literatura bizitzaren **aurrerapen** izan ohi da, bizitzen ikasteko modu bat. Joxean Agirre

Baina liburu hori ez zen gero etorriko zen obra ikaragarriaren **aurrerapena** baizik. Karlos Zabala

5 *iz* dagokion garaia baino lehen ordaintzen edo jasotzen den diru kopurua. ik**aurrerakin**.

Ez nuen oraindik neure lehen soldata jaso, **aurrerapen** txiki bat baino ez zidaten eman, kontularitzan ordenadoreak hondatu zirelako, eta ezin nituen C neurriko bularretakoak erosi. Joxan Elosegi

Lansariaren **aurrerapen** apurtxo bat... Zerbait apartekoa, berorrek begi onez ikusten badu. Juan Garzia

Eska ote ziezaiokeen, pertsonalki, diru **aurrerapen** bat kutxazainari? Irene Aldasoro

Aurrezki-kutxako langileak puntual ematen zizkion bere soldataren **aurrerapenak**. Anton Garikano

Beraiek ez zeuden **aurrerapenen** eta diru kopuru handien zirku horretan sartzeko prest. Harkaitz Cano

6 *aurrerapen sozial*

Horrez gain, **aurrerapen soziala** egiteko kultura, hizkuntza, immigrazio eta lan arloa Kataluniaren esku geldi zitezen aldarrikatu zuten, besteak beste. Berria - Mundua

Europa suntsitu zuen nazien basakeriaren hondakinetatik, gerraren ondoren gizarte-antolamendu berri bat sortu zen, Europan bi gerren artean izan ziren **aurrerapen sozialen** eta Estatu Batuetan lanaren antolamenduak izan zuen berrikuntza handien sintesia izan zena. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurrerapen bat ere (4); **aurrerapen espirituala** (3); **aurrerapen fiskal bat** (5); **aurrerapen gisa** (8); **aurrerapen guztiak** (4); **aurrerapen handia izango** (3); **aurrerapen handiak egin** (10); **aurrerapen handirik** (3); **aurrerapen handiz** (4); **aurrerapen hori** (3); **aurrerapen horiek** (3); **aurrerapen teknikoa** (4); **aurrerapen teknikoak** (3); **aurrerapen teknologiko** (4); **aurrerapen teknologikoa** (4); **aurrerapen teknologikoaren** (3); **aurrerapen teknologikoek** (6); **aurrerapen zientifikoa** (3)

baino aurrerapen handiagoa (3); **gabeko aurrerapen** (3); **hilabetero aurrerapen fiskal** (4); **zenbait aurrerapen egin** (3); **ziren aurrerapen** (3); **zuen aurrerapen** (3)

aurrerapena da (7); **aurrerapena izan** (3); **aurrerapena izango** (4); **liburu aurrerapena** (12); **sekulako aurrerapena** (3); **zenaren aurrerapena** (3); **zientziaren aurrerapena** (3)

aurrerapenak behar (3); **aurrerapenak egin** (4); **diren aurrerapenak** (5); **egindako aurrerapenak** (4)

orokorraren aurrerapenaren irizpide (3); **plan orokorraren aurrerapenaren** (3)

aurrerapenaz hitz (3)

aurrerapenei esker (10)

aurrerapenen berri (3)

aurrerapenik egin (4); **aurrerapenik ez** (5); **aurrerapenik izan** (4); **ez da aurrerapenik** (3)

---

aurrerapide ik **aurrerabide**.

---

aurrerarazi, aurreraraz, aurrerarazten du *ad* aurrera eginarazi.

Amaitzeko, ezin saihestuzko galdera: matematikari haren baitatik igarotzeak zertan **aurrerarazi** zien beren ikerketa? Jon Muñoz

Askotan emakumezkoak dira banatuta dauden komunitateen artean elkarrizketa hasteko prest dauden lehenak, muga psikologiko eta materialak gurutzatzen, adiskidantzarantz **aurrerarazten**. Berria - Euskal Herria

Taniak eskutik heldu, tiraka **aurrerarazi** eta eraman ez banindu, gatz estatua bihurtuko nintzatekeen. Jon Muñoz

Dirua han zuten guztien Aitajaun izendatua zuen bere burua, nonbait, eta haietaz arduratu eta dirua **aurrerarazten** zien, harik eta etxea erosten zuten arte, eta ez zegoen bat bakarra ere bankuan dirutza galanta ez zeukanik. Xabier Olarra

---

aurreratu, aurrera(tu), aurreratzen **1** da/du *ad* aurrera egin, aurrera joan; aurrerago jarri.

Kobrezko tronpeta handi bat tonutik ateratzen zen, noiz atzeratuz, noiz barregarriro **aurreratuz**. Jose Morales

Hanka egin zuen gizonak, eta galopan **aurreratu** ziren erretiradan zetozen gudarietako batzuk. Edorta Jimenez

Aurreratuko nituen hamar edo hamabi urrats, eta hartan zangoen artean trabatu zitzaidan jantziaren urratua. Koro Navarro

Izen bereziak japonieraz ematen diren moduan idatzi ditut, abizena **aurreratuz**. Ibon Uribarri

Uil niri begira jartzen zen, keinuka, sorbaldak **aurreratuta**, eskuak poltsikoan. Juan Kruz Igerabide

Bi eskuekin atxiki eta ezker zangoa **aurreratu** nuen, neure burua defendatzeko plantan. Aingeru Epaltza

Xingoletako batean, Marilynen irudia, burua **aurreraturik**, kiss me esaten ari balitzait bezala. Anjel Lertxundi

Ukondokada pare bat partitu behar izan zuen **aurreratzeko**. Fernando Morillo

Orduan neska bere maitearengana **aurreratzen** da besoak zabalik, eta oihu egiten du: "Ahmet, Ahmet!". Fernando Rey

Neu **aurreratu** naiz, bide-erakusle. Xabier Mendiguren Elizegi

2 zaio/du *ad* aurrea hartu.

Autobusak txirrindulariak **aurreratu** zituen aldapa batean. Koro Navarro

Meee eginez furgoneta batek **aurreratu** zuen. Pablo Sastre

Alboetatik arraunlariek **aurreratu** egiten zituzten, zorabiaturik gasolioaren usain sarkorraren eraginez. Lutxo Egia

3 du *ad* (nor osagarririk gabe) aurrerapenak egin.

Zenbat **aurreratu** dugun, hortik kontuak atera. Joxerra Garzia

Historia lastertasun bizian ari da **aurreratzen**. Askoren artean

4 du *ad* aurrerapenen bat lortu.

Geure xedean ez dugu anitz **aurreratu**. Jon Muñoz

Gaur egun medikuntzak asko **aurreratu** du. Mikel Hernandez Abaitua

Asko **aurreratu** du handik hona. Hasier Etxeberria

Horrela jarraituz gero, urteotan aurreko bost urteetan **aurreratu** duzuna **aurreratzen** baldin baduzu, nahi duzun lekura iritsiko zara. Koro Navarro

5 da/du *ad* zerbait seinalatua zegoen baino lehen gertatu, egin edo egingo dela adierazi.

San Jose eguna astelehenean tokatuko zela-eta, Labartzako Udalak ospakizunak bi egunez **aurreratzea** erabaki zuen. Txillardegi

Venezuela izango da leku bakarra munduan 1999ko urte bukaera ospetsua egun bat **aurreratu** zuena, abenduaren 30era. Pako Aristi

Radio Euskadik ere albistegiak seietara **aurreratu** zituen, Torrelledó esatariari ordubete laburtuz bere jarduna. Pello Zabala

6 du *ad* diruaz edo salgaiez mintzatuz, aurrez ordaindu edo eman. ik**aurrerakin**.

Katearen zuzendariak ez zidan dirua **aurreratu** nahi izan, handiago bat erosi ahal izateko. Joxan Elosegi

Naxariok baietz, **aurreratuko** zizkiola behar zituzten txanponak Pio negozioan sar zedin, egoteko lasai. Xabier Etxabe

Eta Santa Teresitari dagokionez, arestian aipatu baituzu, jakizu neronek ere atxikimendu handia diodala eta prest naizela, bai gogotik ere, zor diozun dirua **aurreratzeko**. Matías Mujika

Nahi baduzu, **aurreratuko** dizkizut oihal metro batzuk. Koro Navarro

Xentimo **aurreratua**, alferrik xahutua. Xabier Olarra

7 du *ad* aurreztu.

Felishmandarrek beste 10.000 $ **aurreratu** dituzte. Ramon Etxezarreta

Urtebetean 3.000 milioi dolar **aurreratu** dituzte, Jose Vicente Rangel Kanpo Ministroaren arabera. Pako Aristi

Eta horren ostean, hegaz joanez, denbora **aurreratuko** zutela. Julen Gabiria

Zer ez nuen egin beharko hiru mila libera inguratu eta parte bat behintzat **aurreratu** ahal izateko? Matías Múgica

Diru pixka bat **aurreratu** orduko, beste sortatxo bat eskatuko dinagu. Antton Olano

Money askotxo neukan **aurreratuta** ia konturatu barik. Jon Arretxe

8 du *ad* zerbait aurrez adierazi.

Telebistako iragarkiak filmaren inguruan **aurreratzen** zuenak interesgarriago ematen zuen azken batez filma bera izan dena baino. Sonia Gonzalez

Aurreraxeago eztabaidatuko dugu gai garrantzitsu hori; baina emaitza **aurreratuz**, zera baiesten dugu: maitagogoak bereganatzen duela, bai, objektuen izana, edo iristen dela objektuengana, horien ezagutza benetakoa lortuz. Jenaro Garate

Ez zion, hala ere, komedianteari horri buruz deus **aurreratu** nahi izan. Harkaitz Cano

Elenaren ahotsaren murmurioa entzuten jarraitzen dut, umearen diskurtsoa **aurreratuz**. Iban Zaldua

Idazle askori ez zaio gustatzen zer idazten ari den esatea edo obraren titulua **aurreratzea**. Ana Urkiza

Baina, agian, hauxe da garaia beste galdera bat **aurreratzeko**: zer gertatzen da orain espainiar Estatuaren "Beste" nagusiarekin? Joseba Zulaika

9 (partizipio burutua izenondo gisa)

Le Nouvel Observateur irakurtzen zuten politika gauzetan sartu nahi zuten ikasle kristau **aurreratuek**. Piarres Aintziart

Ni trikitira hurreratu nintzanean, Gipuzkoakoa landuago, **aurreratuago** aurkitu neban, frantsestuago, zelanbait esateko. Xabier Amuriza

Horrexegatik, herri **aurreratu** guztietan, nahitaezko izan dituzte legeek betebehar horien menekoak zehazteko moldeak. Andres Urrutia

Sans-culottes sutsu eta utopiazalea, Jakobino erradikalenen tesia gehiegizkoen dizipulu **aurreratua** bilakatua zen. Elena Touyarou

Cox laboraria adinean **aurreratu** samarra zen ordurako, eta bere odoleko semerik ez zuenez gero, laguntza gehiagoren premia zuen basetxean aritzeko. Mirentxu Larrañaga

Garai hartarako teresianak modernoak ziren (kalekoz janzten ziren, lanbide zibilak zeuzkaten) eta pedagogiaren aldetik **aurreratuenetakoak** izango ziren ikastetxe erlijiosoetan. Agurtzane Juanena

Piano-andereñoak berak zabaltzen dit atea, amultsuki irribarrez, eta esaten dit, ikasle **aurreratu** bat izateak irakasle bati ematen dion harrotasunaz. Anjel Lertxundi

Noizbait ere esan zuen ikerketa zientifikoak **aurreratuago** zeudela Ameriketan Errusian baino. Fernando Rey

10 *adinean aurreratu*

Urte asko zen, Jaunak inguruko etsaiengandik libraturik, Israel bakean bizi zela. Josue zahartua zegoen, **adinean aurreratua**. Elizen arteko biblia

-Gaztetan, artean ikuspegi erromantikoak harrapaturik gauzkala -dio gizonak-, uste izaten dugu etengabe hautatzea dela bizitza; **adinean aurreratu** ahala, ordea, bestela ikusi ohi dugu. Imanol Zurutuza

Adinean aurreratu ahala gutxitan egiten bazuten ere, haserretzen zirenean polito irteten zitzaien mordoilo ulergaitz hura. Urtzi Urrutikoeetxea

Espartarki hazi zituen hiru seme, eta ikasketak eginarazi; **adinean aurreraturik**, ordea, ez zuen eragozpenik jarri kristau mediku zahar bat, bizar-handios eta gogoiluna, senartzat hartzeko, eta orduz geroztik zekenkeriara eta arrarotasunera makurtuz joan zen, hainbat nola gaztetan izan baitzen erregekiro eskuzabal, emakume eder eta oso maitatuak ohi direnez. Juan Garzia

(Are gehiago, helduaren garunak ez du jadanik haurraren garunaren plastizitaterik; horregatik da, hain zuzen ere, zailago, hizkuntza berriak ikastea edo trebetasun berriak bereganatzea **adinean aurreratu** ahala. Xabier Olarra

Cox laboraria **adinean aurreratu** samarra zen ordurako, eta bere odoleko semerik ez zuenez gero, laguntza gehiagoren premia zuen basetxean aritzeko. Mirentxu Larrañaga

-Hitz egin ezak hik -esan zion Blaustek, friulanoz, Susannari, hura baitzen **adinean aurreratuena**. Josu Zabaleta

11 *adinean aurreratuxe*

Dozena bat bisitari dira, **adinean aurreratuxeak**; fin berba eginda, zaharrak direla esango zenuke lagun artean. Urtzi Urrutikoeetxea

Adinean aurreratuxeak gaudenez gero, epe laburrean beharko dik izan nahitaez. Jon Muñoz

12 *eskua aurreratu*

Ruche jaunak **eskua aurreratu** zuen. Jon Muñoz

13 *urteetan aurreratu*

Zakariasek esan zion aingeruari: -Nola jakin dezaket horrela gertatuko dena? Ni zaharra naiz, eta emaztea ere **urteetan aurreratua**. Elizen arteko biblia

-Horrela jarraituz gero, urteotan aurreko bost **urteetan aurreratu** duzuna aurreratzen baldin baduzu, nahi duzun lekura iritsiko zara. Koro Navarro

Gizona **urteetan aurreratua** zen eta sei urte eman zituen elbarri, limosnatik biziz. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adinean aurreratu ahala (3); **agerraldian aurreratu zuenez** (3); **aingerua aurreratu** (3); **aldiz aurreratu zen** (3); **ari direla aurreratu** (3); **artean aurreratu** (3); **asko aurreratu da** (7); **asko aurreratu dela** (4); **asko aurreratu du** (4); **asko aurreratu dugu** (6); **asko aurreratu dute** (3); **asko aurreratu zuen** (3); **askorik aurreratu** (6); **asmoa duela aurreratu** (5); **asmoa dutela aurreratu** (6); **astean aurreratu zuen** (3); **atzo aurreratu zuen** (5); **atzo aurreratu zuenez** (8)

aurreratu ahal izateko (3); **aurreratu baitu** (3); **aurreratu baitugu** (3); **aurreratu bat** (4); **aurreratu behar izan** (6); **aurreratu behar izatea** (3); **aurreratu bezala** (12); **aurreratu daiteke** (6); **aurreratu digu** (3); **aurreratu dio** (3); **aurreratu dira** (13); **aurreratu ditu** (11); **aurreratu dituzte** (7); **aurreratu dugun** (4); **aurreratu dut** (3); **aurreratu dute adituek** (3); **aurreratu dute antolatzaileek** (4); **aurreratu dutela** (3); **aurreratu duten** (3); **aurreratu dutenez** (8); **aurreratu edo** (8); **aurreratu egin behar** (3); **aurreratu egin dela** (3); **aurreratu egin dute** (4); **aurreratu egin nahi** (3); **aurreratu egin zen** (8); **aurreratu egin ziren** (6); **aurreratu egin zuen** (4); **aurreratu egingo** (5); **aurreratu egiten** (8); **aurreratu ez** (5); **aurreratu ezin** (3); **aurreratu honetan** (4); **aurreratu nahi izan** (17); **aurreratu naiz** (4); **aurreratu ondoren** (6); **aurreratu samarra** (5); **aurreratu zaio** (4); **aurreratu zen markagailuan** (9); **aurreratu zion** (5); **aurreratu ziren markagailuan** (3); **aurreratu zituzten** (3); **aurreratu zitzaidan** (3); **aurreratu zitzaien** (7); **aurreratu zitzaion** (8); **aurreratu zuen atzo** (12); **aurreratu zuen bere** (4); **aurreratu zuen ez** (4); **aurreratu zutenez** (5)

azkar aurreratu (3); **baina aurreratu egin** (3); **batean aurreratu** (4); **batek aurreratu** (4); **batzuk aurreratu zituen** (3); **beharko direla aurreratu** (3); **bera aurreratu** (3); **berak aurreratu** (9); **bi aldiz aurreratu** (3); **bozak aurreratu** (4); **da aurreratu** (4); **da ezer aurreratu** (6); **dela aurreratu du** (12); **dela aurreratu dute** (8); **dela aurreratu zuen** (35); **den astean aurreratu** (3); **den aurreratu** (3); **dezente aurreratu** (5); **direla aurreratu du** (5); **direla aurreratu dute** (3); **direla aurreratu zuen** (14); **direla aurreratu zuten** (4); **dirua aurreratu** (11); **dituela aurreratu du** (4); **dituela aurreratu zuen** (10); **dituztela aurreratu du** (4); **dituztela aurreratu zuen** (4); **duela aurreratu du** (12); **duela aurreratu dute** (4); **duela aurreratu zuen** (27); **duela onartuko aurreratu** (3); **dugu aurreratu** (3); **dutela aurreratu du** (4); **dutela aurreratu dute** (4); **dutela aurreratu zuen** (17); **dutela aurreratu zuten** (5); **edo aurreratu** (4); **edo zer aurreratu** (3); **egingo dela aurreratu** (3); **egingo duela aurreratu** (10); **egingo dutela aurreratu** (4); **eguna aurreratu** (4); **egunkariak aurreratu** (3); **erdilari aurreratu gisa** (5); **ere aurreratu zuen** (7); **esker aurreratu** (4); **ez du aurreratu** (6); **ez dute aurreratu** (3); **ez zuen aurreratu** (9); **ezer aurreratu nahi** (3); **ezer gutxi aurreratu** (7)

gaua aurreratu (3); **gehiago aurreratu** (9); **gehiegi aurreratu** (7); **gizarte aurreratu** (4); **gorputza aurreratu** (4); **gutxi aurreratu da** (4); **hauteskundeak aurreratu beharko** (4); **herenegun aurreratu** (3); **herri aurreratu guztietan** (3); **hori aurreratu** (3); **izan daitekeela aurreratu** (4); **izan dezakeela aurreratu** (3); **izango aurreratu zuen** (4); **izango dela aurreratu** (27); **izango direla aurreratu** (8); **izango duela aurreratu** (6); **izango zela aurreratu** (4); **jada aurreratu zuen** (3); **lana aurreratu** (3); **ministroak aurreratu** (4); **minutu aurreratu** (3); **minutuan aurreratu** (5); **nola aurreratu** (3); **onartuko aurreratu zuen** (3); **ordua aurreratu** (4); **postu aurreratu** (3); **prentsak aurreratu** (3); **saiatuko direla aurreratu** (3); **sailburuak aurreratu zuen** (3); **sindikatuek aurreratu** (3); **zela aurreratu zuen** (9); **zenbat aurreratu duen** (4); **zerbait aurreratu** (4); **zuela aurreratu** (6); **zuen aurreratu nahi** (5); **zuen ezer aurreratu** (3); **zutela aurreratu zuten** (3); **zuzendariak aurreratu duenez** (3)

adinean aurreratua (5); **aski aurreratua** (4); **aurreratua dago** (4); **aurreratua izango** (5); **aurreratua zela** (3); **aurreratua zen** (7); **erretiro aurreratua** (7); **hain aurreratua** (3); **ikasle aurreratua** (3); **oso aurreratua** (18); **urtetan aurreratua** (3)

askoz aurreratuago (4); **baino aurreratuago** (4)

baino aurreratuagoa (6)

aurreratuak zituen (4); **haurdunaldi aurreratuak etetea** (4); **oso aurreratuak daude** (3)

herri aurreratuek (3)

ikasketa aurreratuen institutua (4); **princetoneko ikasketa aurreratuen** (6)

ikasle aurreratuena (4)

herri aurreratuenen (3)

aurreratuenetan ere (3); **gizarte aurreratuenetan** (4); **herri aurreratuenetan** (4)

asko aurreratuko (3); **aurreratuko da** (4); **aurreratuko du** (3); **aurreratuko dut** (3); **aurreratuko lirateke** (3); **ez direla aurreratuko** (4); **ez dituela aurreratuko** (4); **gehiago aurreratuko** (4); **hauteskundeak aurreratuko** (10)

burua aurreraturik (4)

aurreratuta dago (5); **aurreratuta dute** (3); **aurreratuta egongo da** (3); **aurreratuta zegoen** (5); **ikerketak oso aurreratuta** (3); **nahiko aurreratuta** (8); **oso aurreratuta daude** (3); **oso aurreratuta daudela** (3)

aurreratutako finala (4)

aurreratuz gero (4)

aurreratzeko aukera (5); **aurreratzeko eskatu dio** (3); **aurreratzeko eskatu zuen** (3); **bozak aurreratzeko** (7); **ezer aurreratzeko** (3); **hauteskundeak aurreratzeko eskatu** (3); **lana aurreratzeko** (3); **markagailuan aurreratzeko** (5); **zerbait aurreratzeko** (3)

asko aurreratzen (3); **aurreratzen ari zela** (3); **aurreratzen ari zen** (4); **aurreratzen bada** (3); **aurreratzen dela** (3); **aurreratzen den** (4); **aurreratzen dira** (3); **aurreratzen ditzute** (3); **aurreratzen du** (6); **aurreratzen duela** (3); **aurreratzen duen** (3); **aurreratzen duten** (3); **aurreratzen hasi** (3); **aurreratzen joan** (4); **aurreratzen saiatu** (3); **aurreratzen zaio** (3); **aurreratzen zuen** (3); **da aurreratzen** (3); **dela aurreratzen** (3); **dirua aurreratzen** (5); **ezer aurreratzen** (6); **kamioi bat aurreratzen** (3)

---

aurreratzaile 1 *iz* zerbaiti aurrera eragiten dion pertsona.

Lanpostu baten jabe nintzen: egutegi **aurreratzaile** -egokitzailea nintzen. Joxan Elosegi

---

aurreratze *iz aurreratu* aditzari dagokion ekintza.

Bertute-mota guztietan **aurreratzea** irrikatzen zuen, baina ez nabarmentzea; baliabide guztiak erabiltzen zituen jendearen mirespenetik ihes egiteko, inoiz handiustean erortzeko beldurrez. Askoren artean

Besteak beste, erretiratzeko adina **aurreratzea** eta azpikontratazioak gutxitzea eskatu ditu. Berria - Ekonomia

Dirua **aurreratzeagatik**, ez zuten neskamerik, baina Annieren ahizpa gaztea, Monica, etortzen zen laguntzera, ordubete bat edo goizean eta beste ordubete bat edo arratsaldean. Irene Aldasoro

Zure egitekoa egutegiak **aurreratzea** eta golf klubeko araudia fotokopiatzea zen bitartean. Joxan Elosegi

Merezi du ordea gai honi buruzko hipotesi bat **aurreratzea**. Koro Navarro

Printzipio horrek **aurreratzea** jartzen du mahai gainean, ondorio ezin kaltegarriagoak ekar ditzaketen bideak identi? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Esan zuen, halaber, geografiak betidanik halako nahasmena sortu izan zionez, munduko globoa eskuetan zuela segitzen zituela tropen **aurreratze** eta atzeratzeak. Bego Montorio

Hiztegigilea ohartua da kosta egiten zaiola lanean deusik **aurreratzea**, emaztea gaixorik duenetik. Imanol Zurutuza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurreratzea erabaki du (3); **aurreratzea erabaki zuen** (3); **aurreratzea ez** (3); **aurreratzea lortu** (3); **bozak aurreratzea** (6); **hauteskundeak aurreratzea** (11); **markagailuan aurreratzea** (3)

hauteskundeak aurreratzearen (4)

aurreratzerik ez (4)

---

aurreraxeago adlag apur bat aurrerago.

Handik **aurreraxeago** harriartea zeharo estutzen zen eta bideak hain hartzen zuen gainbehera latza, non ezinezkoa zen zaldiz jarraitzea. Joanes Urkixo

Handik berrogei bat metrora, bera ibiltzen ari zen espaloian **aurreraxeago**, Stein arma-fabrika zaintzeaz arduratzen zen polizia-taldea txanda-aldaketa egitera zihoan. Pedro Alberdi

Baina Astillerok eta guk indar gehixeago erakutsi dugu, eta **aurreraxeago** egongo gara agian. Berria - Kirola

Aurreraxeago jasoko zaituztet. Bernardo Atxaga

-Iskanbila handiegia zagok -esan zuen Germanok-; goazak **aurreraxeago**. Josu Zabaleta

---

aurrerazale *izond* aurrerakoia.

Beraz **aurrerazale** den ezker askotariko boz emaileari, diskurtso hori atzerapauso bat iruditzen zaio. Patziku Perurena

Guztiek higidura zirkular berdina dute, eta haietako batean ere ez da **aurreratze** edo atzeratzerik gertatzen. Xabier Kintana

Ezkertiar eta **aurrerazale** aire bat ematen zion, eta horrek erbesteratuen zirkuluetan sartzeko bidea erraztu. Edorta Jimenez

1960 inguru hartan mundu osoko gazte **aurrerazaleek** "Che" Guevararen posterrak zituzten jarrita beren geletan, eta bai "Chek" eta bai Castrok belaunaldi oso baten ideia iraultzaileak gorpuzten zituzten. Jon Muñoz

Hala ere, askoz **aurrerazaleagoa** da Elizaren diskurtsoa, euren burua progresistatzat duten askorena baino. Berria - Harian

---

aurrerazki *adlag* aurrera.

Gaurtik **aurrerazki**, Zorayda Arraras giza irudimen zinezkoenaren fruituen izartegi unibertsaleko ondarearen ale gogoangarrienetako bat bihurturik dago. Iñaki Segurola

---

aurreren *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi) adlag* aurrenik.

Baina berehala ekaitza sortu zen eta Kioskoek zailtasunez baina porturatzea lortzen zuten bitartean, **aurreren** zihoazen hiru atenastarrek aberiak izan zituzten eta itsasoak kiostarren hiri ondora jaurti zituen. ETC-literatura, saiakera

Lagunak inguruan, pixkatxo bat aurrerago, **aurreren** Xopén. ETC-literatura, saiakera

Ohorezko erregionalean bost jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko, eta joan den astean ibarreko hiru ordezkariek kale egin zuten liga ahalik eta **aurreren** amaitzeko egin beharreko lanean. ETC-prentsa

Marcelo Bielsa anbizio handiko entrenatzailea da, eta sekula ez du ezkutatu Europako Ligan eta Espainiako Kopan lan bikaina egin arren, Ligan ere ahalik eta **aurreren** egon nahi zuela. ETC-prentsa

Badakite gogorra izango dela, baina ahal duten **aurreren** gelditu nahi dute. ETC-prentsa

Gazte Akelarre bateko ekitaldi nagusian ahalik eta **aurreren** egotetik ahalik eta atzeren egotera pasatzen zarenean jabetzen zara, gaztea zarela, baina ez hainbeste. ETC-prentsa

Beraz, itzelezko garrantzia dauka, ondo eta erraz prozesatuko bada perpaus bat, aditza ahalbait **aurreren** erabiltzeak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gogoetatzat komeni da esatea zergatik ez dugun idazten Iztuetak liburu honetan eta beste idazle batzuek bezain erraz: aditza ahalik **aurreren** eta galdegaiarekin obsesionatu barik beti joan behar dela aditz gibelean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Irisa, geruza baskularraren **aurreren** dagoen gunea da eta kristalinoaren aurrean diafragma uzkurkor bat eratzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aurrerengo *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)* **1** *adlag* aurrenik.

Non On Benigno enpresaria beti izaten zen **aurrerengo**, adinagatik zein estatusagatik zegokion nagusigoa azpimarratuz bezala. ETC-literatura, saiakera

Zenbait (pseudo) euskalzale eta euskararen munduan **aurrerengo** eta snob dabiltzanetarik hainbat edo askok ez du ezagutzen euskara real 3. millennioaren hasierakoa, ez zoritxarrez ezagutu nahi. ETC-prentsa

• **2** *izlag* lehenengo.

-Ama, zergatik ez gara gu eseri **aurrerengo** aulkietan elizan? ETC-literatura, saiakera

Horregatik, perpaus batean zein bestean aditza oso aurrera dago, bigarren kokalekuan, eta ipuin (eta kontakizun) askotan eta askotan **aurrerengo** lekuan ere joaten da (Bazen behin.). ETC-zientzia, zuzenbidea

Teorian bertan sartu aurretik, unitate guztietan, **aurrerengo** orrialdeetan, aurkezpentxo bat egiten da, lehenengo, adierazteko zelako problema konpondu behar den eta zelako soluzioa duen; bigarren, termino-zerrenda bat ematen da pertinenteenak unitatean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurreko sudur-eztenaren **aurrerengo** muturra. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aurreritzi ik **aurreiritzi**.

---

aurrerromaniko *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)* **1** *izond* erromanikoaren aurrekoa.

X. mendea, zeinean Iruñeko Antso IV.a herrixkaren jabe bihurtu baitzen, eta eliza **aurrerromanikoa** eta etxe aristokratikoa eraiki baitzituzten. ETC-prentsa

Bere magalean Santa María del Naranco eta San Miguel de Lillo eliza **aurrerromanikoak** daude. ETC-entziklopedia

Aurrerromaniko eta Erromaniko garaiekin bat dator, V eta XIV. mendeei dagozkien piezekin. ETC-entziklopedia

2 *arte aurrerromaniko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arte aurrerromaniko edo germanikoaren artean, arte klasikoak eta bizantziarrak ere jarraitu zuten (harria erabiltzera itzuli ziren, basilika oinplanoaz eta dorreez apaindurik). ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aurresan[1], aurresan, aurresaten du *ad* iragarri.

Aurresaterik ez zegoen aukera bat: grabatu perfektua, behin betikoa. Iñaki Iñurrieta

Gertaeren joeraren britainiar behatzaile askok **aurresan** zuten Britainiar Inperioa erortzean azpikontinente osoaren "balkanizazioa" gertatuko zela. Iñaki Mendiguren

Ekoizleek porrot egin dezaketela edo esnea Berriari saltzeari utz diezaioketela **aurresan** dute. Berria - Ekonomia

Zientzia-teoria guztiak behaketa-kopuru mugatu batean oinarritzen dira; behatutako gertakariok bilbatu eta gertakari berriak **aurresatea** da euren helburua, horretarako (fisikan adibidez) "masa", edo "elektroi" bezalako izaki hipotetikoen araberako arau orokorrak sortuaz. Itziar Laka

Atzo Ireneo delako bat aipatu zidan, gero oroimen pobrekoak garela esan zidan, etorkizuna oroitzen eta **aurresaten** ez dugunok etorkizuna aukeratu eta egiteko gauza ez garelako. Joseba Sarrionandia

---

aurresan[2] *iz* iragarpena.

Halaber, azalpenaren eta **aurresan** zientifikoaren arteko simetria estrukturala adierazten zuen tesia oinarritzeko ere balio izan zuen garai batean. Askoren artean

---

aurresangarri *izond* aldez aurretik esan daitekeena.

Arriskuak kontrolagarria eta **aurresangarria** den etorkizuna adierazten du: arriskuen gertaera frekuentzia (probabilitatea) determinagarria da Berria - Gaiak

Hain ezagunak egiten zitzaizkien garai batean enigma paregabeak zirenak; hain **aurresangarriak** askotan. Fernando Morillo

---

aurresate **1** *iz* iragartzea, aldez aurretik esatea.

Bestetik, iragana kontatuz etorkizuna asmatzen dugulako ideia, literaturaren **aurresate**-betekizuna onartzea litzateke. Iñaki Iñurrieta

Zientzia-teoria guztiak behaketa-kopuru mugatu batean oinarritzen dira; behatutako gertakariok bilbatu eta gertakari berriak **aurresatea** da euren helburua. Itziar Laka

Pertsona batek gaitz jakin bat garatzeko duen arriskua **aurresatea** gero eta errazagoa da. Berria - Gaiak

2 *aurresate linealeko kodeketa* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Aurresate linealeko kodeketa edo LPC, audio seinale tratamenduan eta ahotsaren tratamenduan metodorik erabilienetarikoa da. ETC-entziklopedia

---

aurresentipen *iz* aldez aurreko sentipena.

Orduan bakoitzak gertaera bat aipatu zuen, fantasiazko **aurresentipenak**, oso urrutitik arimen artean komunikazioak izandakoak, izaki batek beste batengan ezkutuko eragina izandakoak. Josu Zabaleta

Ez dakit nola azaldu, **aurresentipen** bat edo. Aingeru Epaltza

Salako ispiluaren aurrean erantsitako Veronicaren argazkiak ikustean ordea, **aurresentipen** arraro bat izan zuen, eta irrazionalki, berriro ere bainuontzia bete eta bigarren bainu bat hartu zuen. Harkaitz Cano

Poesi ehiztariak sentitzen duena ez da piztia ehiztaria mugiarazten duenaren ezberdina: goizean jaiki eta zerbait eroriko delako **aurresentipen** bortitza. Pako Aristi

Izanez ere, hoska ari zitzaidan ordurako "ahots jakintsua" -ahots **aurresentipen** adierazlea, Virgiliori sinestera-, eta andre haren ondoan jarraitzeko agintzen zidan, arrastorik galdu gabe. Bernardo Atxaga

---

aurresentitu, aurresenti, aurresentitzen du *ad* aldez aurre sentitu. ik **sumatu**; **susmatu**.

Poliki barneratu zen egitura haren zuraje, habe eta zutabeen artetik, edozein unetan norbaitekin topatuko zela **aurresentituz**. Aitor Arana

Tabirak Fionnen eskua estutu zuen, zerbait arraroa gertatzen zela **aurresentituz**. Joanes Urkixo

Heriotza **aurresentitzen** zuen agian, laster hilko zuen gaixotasunak, bere bizitza laburbildu zidan udako arratsalde eguzkitsu batean hondartzan geundela. Mikel Hernandez Abaitua

---

aurresku **1** *iz* zortzi zati dituen euskal dantza, txistu eta danbolinaz laguntzen dena; dantza horren hirugarren zatia.

Lehenik, Ikasleak taldeko bi gaztek **aurresku** kartsu bat eskainirik,oroit-harri bat estreinatua izan da. Herria

Gaur gauean txalaparta, **aurresku** eta zeremonia hori guztia izango ditek auzoan. Jokin Muñoz

Euskal ohitura jarraikiz, frontoian izan da omenaldia: **aurreskua**, Agur Jaunak, idazki batzuen irakurketa... Pako Aristi

Gero Toñi-k **aurreskua** dantzatu zuen, zangoak gora, txistua jotzen zutela aurizberritar gazte batzuek. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Txistulariak **aurreskua** jotzen hasi dira. Txillardegi

Gaur goizean izan da herri-meza, eta gero, urtero bezala, **aurreskua**. Xabier Etxabe

Azken urteotan kinka larrian daude **aurresku** txapelketak. Berria - Kultura

Biktimen senitartekoek eginiko lore eskaintzaren, ohorezko **aurreskuaren** eta bertsoen ondoren, omenaldira eta manifestazioara deitu zuten sindikatuen txanda iritsi zen. Berria - Ekonomia

2 *iz* aurreskuko eta beste zenbait dantzatako aurrelaria.

Eta nire ametsa dantza hartan **aurresku** izatea zatekeen arren, atsegin nuen atzesku joatea. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurresku bat (12); **aurresku batekin** (3); **aurresku eta mutxikoak** (3); **aurresku txapelketa** (6); **aurresku txapelketak** (3); **ere aurresku** (3); **euskadiko gipuzkoar aurresku** (3); **ondotik aurresku** (5)

aurreskua dantzatu zuen (4); **aurreskua eskaini** (5); **batek aurreskua dantzatu** (3); **dantzari batek aurreskua** (3); **dantzariek aurreskua** (3); **ohorezko aurreskua dantzatu** (4)

---

aurreskulari *iz* aurresku dantzaria.

Bizi izan ez duenak ez daki: eguna joan eta eguna etorri, urteetan eta urteetan, hainbeste liburu eta aldizkari, hainbeste margo, eskultura, instalakuntza eta perfomance, hainbeste kanta, disko eta sinfonia, hainbeste aktore, pailazo eta txotxongilo, hainbeste **aurreskulari** , zamaltzain eta koreografo, hainbeste kopla, bertso, bertsopaper eta txapelketa, hainbeste sariketa, antologia, izendapen, omenaldi, hileta eta urteurren... Juan Luis Zabala

---

aurrestreinaldi *(corpusean ez dago; ETCn **157** agerraldi) iz* estreinaldiaren aurreko emankizuna.

Erreferentzia onak jaso genituen Donostiako Fantasia eta Beldurrezko Zinemaren Astean egindako **aurrestreinaldira** joandako pribilegiatu gutxi horien ahotik, eta filmak publikoaren saria eskuratu izana ere aurrekari gisa ulertu genuen askok. ETC-literatura, saiakera

Baina **aurrestreinaldian** oso gustura ikusi nituen haurrak. ETC-prentsa

Horren aurretik, gaur arratsaldean **aurrestreinaldi** irekia egingo dute EITBren Bilboko egoitzan. ETC-prentsa

Escudero musikagileari buruzko dokumentalaren **aurrestreinaldia** izango da gaur Zarautzen . ETC-prentsa

Bilboko Kafe Antzokian egingo dute Lingua nabajorum-en estreinaldia, baina joan den ostiralean **aurrestreinaldi** bat egin zuten Soraluzen, Oregiren jaioterrian. ETC-prentsa

Baina Asierrek oraingoz ezinen du afaldu Aitorren Madrilgo lagunekin, Iruñeko **aurrestreinaldian** egoterik ezin izan zuen moduan. ETC-prentsa

Loreak filmaren **aurrestreinaldi** berezia antolatu du EITB taldeko irratiak, egunotan entzuleei gonbidapenak banatuz. ETC-prentsa

Iaz, Durangon egin zuten lanaren **aurrestreinaldia** , Bartzelonako DocsBarcelona nazioarteko jaialdian estreinatu zuten ofizialki maiatzean, Donostiako Zinemaldian proiektatu zuten, baita beste hainbat herritan ere. ETC-prentsa

Arizmendi ikastolak prozesuan izan duen garrantzi handia eskertzeko, abenduaren 15ean egingo dute **aurrestreinaldia** Arrasaten bertan. ETC-prentsa

Azkena, Leioako Kultur Maratilan egindako **aurrestreinaldia** izan zen, Bizkaian. ETC-prentsa

Barikuan, martxoaren 28an, Camaradas filmaren **aurrestreinaldia** egingo dute, 19: 00etan, San Agustin kultur gunean. ETC-prentsa

Arrakasta handien duten telesail batzuen kasuan, **aurrestreinaldiak** ere egin izan dira webgunearen bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Denboraldiko azken atalaren **aurrestreinaldia** eskaini zuten otsailaren 14an Hendaian, telebistan emititu baino egun bat lehenago, Seaskaren 50. urtemugaren harira. ETC-entziklopedia

Raphaelentzat beren beregi idatziriko komedia zoro hau Donostiako Zinemaldiaren Sail Ofizialean **aurrestreinaldia** izan zuen. ETC-entziklopedia

---

aurresuposatu, aurresuposa, aurresuposatzen du *ad* aldez aurretik suposatu.

Erronka are zailagoa ezer "graberik" ez dagoela **aurresuposatzen** duen genero parodikoan kokatuz gero, ez baita hau zientzia fikzio serioa, ezta hurrik eman ere. Berria - Kultura

Izan ere, honek higigarria den zerbaiten hautemapena **aurresuposatzen** du. Ibon Uribarri

Duintasuna, **aurresuposatu** egiten ditek. Harkaitz Cano

Bakarrik, absolututasun horrek gizon-emakume jakinen fedea **aurresuposatzen** du, oinarri kolokatxoa da berau. Joxe Azurmendi

Aurresuposatu batetik abiatu behar da: ideia egokietatik beti ideia egokiak deduzitzen dira. Piarres Xarriton

---

aurresuposizio *iz* aldez aurretik suposatzea.

Berbaitango gauzek edo objektu transzendentalak sentsuen gain inpresioa egiten dutela dioen **aurresuposiziorik** gabe ezin dela Kanten sisteman sartu, baina era berean **aurresuposizio** horrekin ezin dela bertan geratu. Ibon Uribarri

Zientzia baten funtzionamendu ideologikoari aurre egitea bera agerrarazteko eta aldatzeko, ez da bere baitan egon daitezkeen **aurresuposizio** filosofikoak eguneratzea. Xabier Arregi

Histori idazleen eta beste irakasle batzuen hutsegitea da imajinatzea beraiek kristau ez badira aske daudela Historia inolako **aurresuposiziorik** gabe aztertzeko. Iñaki Mendiguren

Salbamen edo hilezkortasun ideia tradiziozko adieran **aurresuposizio** batekin batera ibili ohi da. Piarres Xarriton

Askoz argiagoa zen, askoz esplizituagoa, **aurresuposizio** adierazi gabeek ez zuten han hainbesteko lekurik. Xabier Olarra

---

aurretalde *iz* abangoardia.

Zuetarik bat buruzagi harturik, egin asiriar **aurretaldearen** kontra lautadara jaisteko itxura. Elizen arteko biblia

Haranean barrena zihoala, asiriar soldaduen **aurretalde** bat atera zitzaion bidera eta, geldiaraziz, galdetu zioten: Jose Antonio Mujika

---

aurretenkatu, aurretenka, aurretenkatzen **1** du *ad* behin-behinean tenkatu.

Hipotesi hori, ordea, bihurriegia da dudarik gabe, eta gainbehera etortzen da ikerketa matematikoen aurrean; nolanahi ere, ezin da ondo ulertu nola kolageno-zuntzak **aurretenkaturik** egon daitezkeen hazten ari den hezur bizian. Irene Aldasoro

2 (era burutua izenondo gisa)

Proposaturiko beste esplikazio baten arabera, aurrez tenkaturiko gaia litzateke hezurra: kolageno-zuntzak, hormigoi **aurretenkatuan** altzairuzko hagaxkak nola, hasieran tenkatzen dira, eta inguruko gai minerala, berriz, konprimitu. Irene Aldasoro

---

aurretiaz *adlag* aurrez, aurretik.

Argudio horren bidez berretsi nahi izan zuen esku-hartzea ez zela **aurretiaz** antolatua izan. Berria - Mundua

Bigarren kasuari dagokionez, denborak ezingo luke gauzei atxikitako determinazio edo ordena gisa objektuen **aurretiaz** izan beren baldintza gisa, ezta a priori esakune sintetikoen bitartez ezagutua eta begietsia izan ere. Ibon Uribarri

Gauzak konplikatzeko -eta ez antzerkian bakarrik-, inoren jokabide moralak moralki epaitzeko, haietaz ohartu behar genuke **aurretiaz**, eta hor ezin aurkitu objektibotasunaren sostengurik. Juan Garzia

Aurretiaz ikusi dut nik hori guztia; Jainkoak jakinarazi dit, eta zuri adieraztera bidali nau. Jose Antonio Mujika

Beharbada, bueltatxo bat egingo dut **aurretiaz**, izugarria izan behar da horrelako bat gidatzea. Sonia Gonzalez

Antzerkiak prestaketa lana zekarren eta horrek asko betetzen gintuen, hau da, **aurretiaz** gauzak taldean egiteak. Ana Urkiza

Handik ordubetera, lasterka zihoazen Irkutskeko bidean aurrera, Alcide Jolivetek **aurretiaz** "errebantxaren kanpaina" deitzen zuena errusiarren artean segitzeko asmotan. Karlos Zabala

Hazia sabel gainean **aurretiaz** zabaldutako mukizapian isuri zen eta zapi harexekin lehortu nuen zakilburua lasaitu nintzenean. Aitor Arana

---

aurretiazko 1 *izond* aurretikoa.

Geneak ekoizteko bigarren bidea: **aurretiazko** hornidura zatiak egokitzea mosaiko-geneak eratzeko. Juan Garzia

Azalpen, suposizio teoriko, deskribapen, **aurretiazko** informazio eta abarren ordez erreferentzia bibliografikoak jarri. Askoren artean

Hiru **aurretiazko** basikoren gainean zegoen eutsita. Joxe Azurmendi

Kixoteaz dudan oroitzapena aise pareka liteke idatzi gabeko liburu baten **aurretiazko** imajina zehazkabearekin. Juan Garzia

Aurretiazko gobernutik gobernu berrira igarotzean ere, legeak besterik gabe egin al dira? Andres Urrutia

Horiek ziren hizpide adreilu-fabrikan, jendarmeak baino errukiorragok eta gizatasun handiagokoak izaten baitziren, **aurretiazko** hitzarmenen ostean batez ere, bai dirutan, bai bestelako baliozko gauza batzuetan. Urtzi Urrutikoetxea

Honen barnean dago proposatutako ekintzek ingurumenean, garapenean eta Giza Eskubideetan izan ditzaketen ondorioei buruzko **aurretiazko** aholkularitzarako eskubidea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

2 *aurretiazko borondateen agiri*

Bizi testamentua edo **Aurretiazko Borondateen Agiria** pertsonak bere bizitzaren azkenetan berak adierazi ezin izatekotan jaso nahi dituen tratamendu medikuak eta zainketa moduak biltzen dituen idazkia da. Berria - Harian

Eusko Jaurlaritzak **Aurretiazko Borondateen Agiria** atera du berriki. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurretiazko borondateen agiria** (3)

---

aurretik 1 *postpos* lehenago.

Eta, atzera autoan sartu **aurretik**, indartsu estutu zidan besoa. Jesus Mari Mendizabal

Gerra **aurretik** etorri zen haiek bisitatzera eta hementxe geratu da. Felipe Juaristi

Baina kontuz, ez dezagun azeria ehizatu **aurretik** larrut Pedro Alberdi

Shakespeare bera behar dugu euskaraz, Shakespeareri buruzko azterketen **aurretik**. Anjel Lertxundi

Azken gogoetak egin nahi ditut Bizkaiko euskararen auzia itxi **aurretik**. Koldo Zuazo

Ezkontza **aurretik** datoz, etorri ere, halakoak eta berori antolatzen dute. Andres Urrutia

· **2** *adlag* lehenengo tokian; beste zerbait edo norbait baino lehenago.

Bide zaharretik behera heldu dira biak, astoa eta gurdia **aurretik**. Alberto Barandiaren

Damian ohartua da honezkero, badaki zakurrek hierarkia dutela neurri, nagusi bakarra jartzen dutela **aurretik** beti. Hasier Etxeberria

Mutil-koskor zerrizainak, berriz, oihuka zihoazen herrira itzulian, zerri garbitu berriak **aurretik** zituztela. Anjel Lertxundi

Saketik errenkadan 3 tanto lortuta, 19-11 jarri zen **aurretik** gaztea. Berria - Kirola

3 *adlag* aurrealdetik.

-Aurretik bezain erakargarria zara atzetik! Juan Martin Elexpuru

Aurretik eta atzetik zihoan jendeak honela zioen oihuka. Elizen arteko biblia

4 *adlag* denboraz mintzatuz, lehenago.

Aurretik ere, bidean, Erçisteko ostatuan eta Vangoan, Ahmetek berdin egin zuen. Fernando Rey

Aurretik, ordea, Soroetako lurrak merkean bereganatu zituzten, eta garaipentxo hura ospatu beharra zuten, huraxe izan baitzen, ausaz, garaipen erabatekoaren hasiera. Joan Mari Irigoien

-Jatetxeak; han lumatu egiten zaituzte, eta **aurretik** ezin ziur jakin ona izango denik Eskarne Mujika

Gainera entzuleetako askok badute Euskal Herriaren berri, eta **aurretik** egindako lan horrek, informazio zabalkundeak asko laguntzen dio atzerritarrei kontzertu batean. Pako Aristi

Ene irudikoz, **aurretik** behar da pauso zahar bat berritu: herriak oro bere behar ditu sentitu presoak. Hasier Etxeberria

5 ***aldez aurretik*** *adlag* aipatzen den edo jakinekoa den zerbait baino lehen edo berez legokiokeen unea baino lehen. ik **aurrez**.

Verak **aldez aurretik** jakinarazi zion. Koro Navarro

Bere bi zaletasunak eta ogibidea elkartuta, kantari frantsesen abestiak entzunarazten zizkigun maiz eskolan, aditu behar genuen kantu horrexen hitzak **aldez aurretik** eman eta argituta. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zegoen baztertzerik, gainera, halako eszena bat ikustean, ikuslearengan eragina izatea kolore egokiak zein ziren **aldez aurretik** jakiteak: ile-adatsaren horitasuna, ikusi baino gehiago, asmatu egingo omen zuen ikusleak. Xabier Olarra

- Eta zuk ez duzu **aldez aurretik** ezer eskatzen? Lopez de Arana

Baina sute hark ez zeukan, **aldez aurretik** behintzat, halako itxurarik. Fernando Morillo

Nola ezagutu eta zenbatu, **aldez aurretik**, esperientziak berak bakarrik erakuts dezakeena? Andres Urrutia

Aldaketa horiek **aldez aurretik** jakiteko adina baliabide al ditu mendizaleak? Berria - Euskal Herria

6 *aurretik bidali*

Horregatik, oparia **aurretik bidali** zuen, eta bera kanpalekuan gelditu zen gau hartan. Elizen arteko biblia

Ondoren, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere **aurretik bidali** zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta toki guztietara. Elizen arteko biblia

Baliabide handiko mutikotzat nindutenez, **aurretik bidali** ninduten txirrina jo eta hori esatera. Pello Lizarralde

Tsarraren kabinetetik haria moztu **aurretik bidalitako** azken telegramak agindua eman zien gobernadoreari, goarnizioari eta biztanleei, zirenak zirela, Krasnoiarsk bertan behera utzi, gauza baliotsuak edo tatariarrentzat onuragarriak izan zitezkeenak eraman, eta Irkutsken babesa hartzeko. Karlos Zabala

Andrew Betts zen atzo taldearen ardura hartu behar zuena barneko jokoan, baina lehen laurdena amaitu **aurretik bidali** zuen aulkira Ivanovicek. Berria - Kirola

Horregatik, oparia **aurretik bidali** zuen, eta bera kanpamentuan geratu zen gau hartan. Jose Antonio Mujika

Mendizaleek, elur azpikoen bila hasten direnean, zakurrak **aurretik bidaltzen** dituzte, bilatzaileen usainarekin. Gotzon Garate

Sakelan nire txeke potoloa nuela, nagusiak bere **aurretik bidalita** (lehen jatorra bezain zitala iruditzen zitzaidan orain), askatua sentitzen nintzen, libratua, Paris askatu eta libratu batean. Matías Múgica

Neguko egun labur eta funebreak zetozen, behelainoa **aurretik bidalita**. Joseba Sarrionandia

Sariketako azken fasera iritsitako gazteek aldez **aurretik bidalitako** irudiak margotu beharko dituzte antolatzaileek zehaztutako horma zatian. Berria - Kultura

Dena den, Legardak azaldu zuenez, Otegiren adierazpenen **aurretik bidali** zuten idazkia, gizartean "krispazio handia zegoelako». Berria - Euskal Herria

7 *aurretik eraman* harrapatu, hondatu, hil.

Leku ona aurkitu genuela, ongi ezagutuko genituela bazterrak, uxarkan **eramanen gintuztela aurretik**. Koldo Izagirre

Ezta Ipar-haundia ere, itsasaldetik builatsu eta dena **aurretik eraman** beharrean etor ohi dena, kostaldean latigo emanez. Pello Zabala

Errehabilitazio zerbitzuan eginiko beste bi lagunekin arratsaldeko mezarako Karmeldarren elizara zihoala, Easo kalea gurutzatzean guardia zibilaren land rover batek jo, eta **aurretik eraman** zituen hirurak. Ramon Saizarbitoria

Gainera, hasieratik itsutu nintzen, eta alde batetik ulertzekoa da, hainbeste gutiziatzen nuen nik hura bezalako neska bat, eta hain ohiz kanpoko erabakiaz sartu zen emakume hura nire bizitzan, uholde bat balitz bezala, bidean aurkitzen zuèn guztia **aurretik zeramana**...! Joan Mari Irigoien

8 *aurretik eroan* hil.

Beste batzuk garbitu ditut eta zeu be **aurretik eroango** zaitut e! Joseba Sarrionandia

9 *aurretik kendu*.

Ongi da, **ken zaitezte aurretik**! Josu Zabaleta

Galdurik laino lodi hartan noraezean nindoala ikusi nuen neure burua, **aurretik kendu** ezin nituen belarren eta ihien artean indarka, beldurrez zotinka, ibai ertza ikusi ezinda, txalupa aurkitzen ez nuela, eta zerbaitek hanketatik ur beltz haren hondorantz tira egiten zidala iruditzen zitzaidan. Josu Zabaleta

-Zergatik ez diozu **aurretik kendu**? -galdetu zuen Truxa irakasleak. Anton Garikano

10 *begien urretik*

Eta lortu dute: bisitariaren **begien aurretik** jada galduta dauden ofizioetako elementu gehientsuenak ageriko dira. Berria - Kultura

Di da desagertu da beren **begien aurretik**. Jokin Muñoz

Haren **begien aurretik** mundu bat pasa da. Pako Aristi

Baso, bide, herrixka ezezagun ia hutsak igarotzen zitzaizkien **begien aurretik**. Josu Zabaleta

11 *gurdia idien aurrean/aurretik jarri*

Baina ez dezagun **gurdia** idien aurrean jarri, eta geldi gaitezen erromatarren garaian. Bernardo Atxaga

Hau da, **gurdia** idien aurrean jartzeko joera dugu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gurdia idien aurretik jartzea bezalakoa baitzen halako erabaki bat hartzea. Joan Mari Irigoien

12 *orga idien aurretik jarri* ik gorago **17** eta **4.**

Hori ez al da orga **idien** aurretik jartzea? Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

abiatu aurretik (139); **agertu aurretik** (24); **agurtu aurretik** (17); **ahal izan aurretik** (15); **ailegatu aurretik** (12); **alde egin aurretik** (50); **aldez aurretik ez** (12); **aldez aurretik ikusten** (12); **aldez aurretik jakin** (19); **aldez aurretik pentsatu** (12); **argitaratu aurretik** (13); **argitu aurretik** (15); **asmatu aurretik** (11); **atera aurretik** (40); **aurkeztu aurretik** (24); **aurkitu aurretik** (14)

aurretik aipatu (11); **aurretik alde egin** (11); **aurretik aritu** (12); **aurretik atera** (13); **aurretik baino** (23); **aurretik behar** (12); **aurretik bere** (35); **aurretik beste bi** (16); **aurretik bezala** (15); **aurretik bi** (30); **aurretik doa** (17); **aurretik doan** (21); **aurretik edo** (28); **aurretik egin zituen** (11); **aurretik egin zuen** (11); **aurretik egin zuten** (11); **aurretik egindako** (51); **aurretik egingo** (17); **aurretik eginiko** (16); **aurretik egiten** (23); **aurretik egon** (19); **aurretik eman** (18); **aurretik emandako** (13); **aurretik eraman** (13); **aurretik erredakzioa** (15); **aurretik esan** (29); **aurretik eta atzetik** (15); **aurretik eta ondoren** (30); **aurretik euskal** (11); **aurretik ezagutu** (12); **aurretik ezagutzen** (14); **aurretik ezarritako** (30); **aurretik ezer** (14); **aurretik hainbat** (14); **aurretik hartu** (24); **aurretik hil** (21); **aurretik hiru** (18); **aurretik hitz** (15); **aurretik igaro zen** (30); **aurretik igarotzean** (22); **aurretik igarotzen** (24); **aurretik ikusi** (30); **aurretik inork** (18); **aurretik izan zen** (12); **aurretik izan ziren** (11); **aurretik izandako** (21); **aurretik jarri zen** (18); **aurretik jartzea** (25); **aurretik jartzeko** (15); **aurretik jartzen** (24); **aurretik joan** (61); **aurretik joango** (18); **aurretik nire** (14); **aurretik ondo** (12); **aurretik pasa** (31); **aurretik pasatzean** (34); **aurretik pasatzen** (42); **aurretik pasatzerakoan** (14); **aurretik pentsatutako** (13); **aurretik sortu** (11); **aurretik zegoen** (22); **aurretik zehaztu** (11); **aurretik zen** (12); **aurretik zer** (14); **aurretik zeuden** (22); **aurretik zihoan** (29); **aurretik zituen** (17); **aurretik zuen** (23)

aztertu aurretik (12); **baina aldez aurretik** (17); **baina aurretik** (84); **baina horren aurretik** (11); **bakoitzaren aurretik** (11); **baten aurretik** (42); **begien aurretik** (29); **bere aurretik** (80); **bidali aurretik** (16); **bihurtu aurretik** (15); **bildu aurretik** (19); **bileraren aurretik** (16); **bota aurretik** (20); **bozen aurretik** (23); **da aldez aurretik** (13); **da aurretik** (44); **denboraldia hasi aurretik** (24); **desagertu aurretik** (14); **dira aurretik** (21); **ditu aurretik** (19); **du aldez aurretik** (11); **du aurretik** (49); **dute aurretik** (21); **egiten hasi aurretik** (25); **ekin aurretik** (92); **eman aurretik** (111); **entzun aurretik** (14); **epailearen aurretik pasatu** (17); **erabaki aurretik** (35); **erabakia hartu aurretik** (34); **eraman aurretik** (20); **erantzun aurretik** (25); **ere aurretik** (14); **erori aurretik** (19); **esan aurretik** (37); **eseri aurretik** (14); **esperientzia ororen aurretik** (11); **etapa hasi aurretik** (13); **etorri aurretik** (76); **etxe aurretik** (15); **ez aurretik** (13); **ezagutu aurretik** (27); **ezarri aurretik** (12); **ezeren aurretik** (11); **ezkondu aurretik** (47); **finalaren aurretik** (11); **galdu aurretik** (22); **gerra aurretik** (42); **gerra hasi aurretik** (13); **gerraren aurretik** (14); **gure aurretik** (40); **guztien aurretik** (27); **haien aurretik** (30); **haren aurretik** (72); **hasi aurretik ere** (17); **hauteskundeen aurretik** (52); **heldu aurretik** (73); **hil aurretik** (150); **hitz egin aurretik** (20); **honen aurretik** (28); **hori gertatu aurretik** (13); **horien aurretik** (14); **idazten hasi aurretik** (11); **igaro aurretik** (17); **igo aurretik** (19); **ikusi aurretik** (14); **ireki aurretik** (20); **iritsi aurretik** (154); **irten aurretik** (72); **israeldarren aurretik** (13); **itxi aurretik** (35); **itzuli aurretik** (42); **jaio aurretik** (40); **jakin aurretik** (40); **jarraitu aurretik** (30); **jarri aurretik** (47); **jarri zen aurretik** (24); **jarri ziren aurretik** (19); **jaso aurretik** (16); **jaunaren aurretik** (13); **jo aurretik** (50); **jokatu aurretik** (73); **lanean hasi aurretik** (16); **lokartu aurretik** (11); **lortu aurretik** (12); **lotara joan aurretik** (11); **markagailuan aurretik** (34); **merkaturatu aurretik** (12); **nire aurretik** (60); **oheratu aurretik** (18); **onartu aurretik** (23); **osatu aurretik** (13); **partida aurretik** (21); **partida hasi aurretik** (44); **partidaren aurretik** (39); **sartu aurretik** (177); **sinatu aurretik** (13); **sortu aurretik** (43); **txapelketa hasi aurretik** (24); **uda aurretik** (38); **urte bete aurretik** (26); **urtea amaitu aurretik** (38); **urtea bukatu aurretik** (15); **utzi aurretik** (51); **zabaldu aurretik** (23); **zen aurretik markagailuan** (14); **zituen aurretik** (21); **zuen aurretik** (68); **zure aurretik** (36); **zuten aurretik** (23)

---

aurretiko 1 *izond* aurretik dena edo dagoena; aurretiaz egiten dena.

Aurretiko oharrok egin ondoren, beste kapitulu bati ekingo diot. Xabier Kintana

Gaua erabat abaildu **aurretiko** argia. Paddy Rekalde

Latzenetako bat, hauxe: kristautasunaz **aurretikoaren** bila nora joko, eta kristautasunaren profesional haien guztietan izkribuetara jotzen duela. Iñaki Iñurrieta

Zezenketaren **aurretikoak** eta ondotikoak dira. Jokin Muñoz

Gerra **aurretiko** bat-bateko bertso gutxi gorde dira. Andoni Egaña

Esan nahi dut ez dudala **aurretiko** dokumentazio lanik egin. Pako Aristi

Askotan gogoratzen zen Fermin Ibarrak esaten zuenaz; **aurretiko** gertaeretatik ia nekerik gabe ondorioztatzen diren aurkikuntza errazez. Josu Zabaleta

Goragalearen mezu filosofikoa ez da hor amaitzen, ordea, **aurretiko** sistema bat deskribatu baino liburuak egiten duena munduaren ikuspegi berri bat sortzea baita. Monika Etxebarria

Eta gure erantzunak hauek dira, filosofiara iritsi **aurretikoak**. Jenaro Garate

Ez zara zu denboraz aldien **aurretikoa**; bestela ez zinateke aldi guztien aurreko. Imanol Unzurrunzaga

Inportantea XX. mendeko Europako literatura ulertu nahi duenarentzat, Kafkaren **aurretikoak** ezagutu nahi dituenarentzat. Pablo Sastre

Bizi emaile diren aldetik, emakumeek oso leku nabarmena zuten nekazaritza gizarteen **aurretiko** egitura sozialetan, eta haiek lau milioi urte inguru iraun zuten. Luis Elberdin

Erdi itzalean etzanda, kirolari bat aldagelan borrokaren **aurretiko** minutuetan bezala sentitzen nintzen: indarrak bildu eta nerbioak baretzeko eginahalean. Ramon Saizarbitoria

2 *izond* (aditzaren partizipio burutuaren eskuinean)

Koadro bat egiten hasteko lanari ekin **aurretiko** zirriborroak ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nolanahi ere, hark abantaila batzuk ekar ziezazkiokeen, ezagutu **aurretiko** balizko iruditik urrun geratu baitzen haren begien aurrean. Lutxo Egia

Ordaindu ostean, sartu **aurretiko** emozio berberak hartua irten zen. Patxi Zubizarreta

-Neu naiz, ebakuntza egin **aurretikoa**. Josetxo Azkona

Idatzi nuen garaian ez nekian garbi noiz gertatutako pasadizoa zen hura, eta Gerra hasi **aurretikoa** zela uste nian. Xabier Etxabe

Eta gure erantzunak hauek dira, filosofiara iritsi **aurretikoak**. Jenaro Garate

Diotenez, Kristo jaio **aurretiko** bost edo seigarren mendekoa. Karlos Linazasoro

Haren obrak ez dira kartzelan sartu **aurretikoak**, kartzela-urte luzeen ondorioa baizik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eskegi **aurretiko** tutu hotzak, zure deia ongi-etorria izango ez dela adierazten dutenak ere badaude. Harkaitz Cano

3 *iz pl* aurrekoak, arbasoak.

Noizbait 'endore' edo 'hendore' ere erabili zuten gure **aurretikoek**. Patziku Perurena

4 *iz* aitzindaria.

Badute, gutxienik, ezagunenetan, **aurretiko** bat, bi liburu horiek. Pablo Sastre

5 ***aldez aurretiko*** *izlag* aldez aurrekoa.

Ondoren, alderdiek negoziazioak hasi beharko lituzkete, «baina mehatxurik gabe, eta **aldez aurretiko** testu itxi batekin». Berria - Euskal Herria

Polizia gure etxera sartu zuan gauez, eta **aldez aurretiko** abisurik bota gabe tirokatu gintiaten. Mikel Hernandez Abaitua

Bat-batean, **aldez aurretiko** abisurik gabe, gelditu egin zen gurpil-aulkia. Alberto Ladron Arana

Tristura-printza oinazegarriak aienatu zituen, eta hagitz aztoratuta sentitzen zen, **aldez aurretiko** opari bat jasotzera doan norbait balitz bezala. Mirentxu Larrañaga

6 ***aurretiko bista*** *(corpusean ez dago; ETCn **115** agerraldi)*

Sarearen eta haren osagaien goitiko eta **aurretiko bistak** marraztu behar dira, 1: 50 eskalan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Goitiko edo **aurretiko bistan** ebakidura non egin den eta sekzioari zer noranzkotan begiratu behar zaion adierazteko erabiltzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala, errepide baten trazatuaren ordena logikoari jarraitzen dio liburu honek: goitiko bistako trazatua, **aurretiko bistako** trazatua eta zeharkako sekzioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oinaren eta **aurretiko bistaren** arabera bi motako tenpluak bereiz daitezke. ETC-entziklopedia

Habearteen **aurretiko bistan** arkuteria puntadunak ageri dira, diamante-puntakoak ditu kanpoaldeko arkiboltak eta gurutze-itxurako pilare handien gainean daude. ETC-entziklopedia

7 ***ezkon aurretiko***

Bera bezala Auschwitzetik bizirik irten eta senarra eta semea Mauthausenen hil zitzaizkion Elfriede Geiringer, **ezkon aurretiko** deituraz Markowitz izenekoarekin ezkondu zen. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aldez aurretiko abisurik** (4); **aldez aurretiko borondateak** (5); **aldez aurretiko inolako** (3); **aldez aurretiko jarrera** (4); **aurretiko abisurik gabe** (3); **aurretiko azken** (7); **aurretiko diagnostiko genetikoa** (3); **aurretiko erretiroa** (3); **aurretiko garaian** (4); **egin aurretiko** (4); **ezagutu aurretiko** (4); **ezarri aurretiko diagnostiko** (5); **hartu aurretiko** (4); **hasi aurretiko** (7); **hil aurretiko** (3); **jaio aurretiko** (7); **kristo aurretiko** (4)
>
> **aldez aurretikoa** (3)

---

aurretixe *adlag* apur bat aurretik.

Londresera abiatu **aurretixe**, Swinburne-ren liluramendua ezagutu nuen. Juan Garzia

Ilunsentiaren **aurretixe** suertatu da momentua, herriaren aurreko azken gaintxora iritsi garenean. Jon Arretxe

Isabel erregina potzolo gixena, Frantzia aldera ihesi abiatu **aurretixe**, Madrileko gertakari larrien hasieraren garaian, Lekeition zegoen. Txillardegi

Galdera bat-batean otu zitzaidan, eskuak patriketan eta alkandora-iduna gorantz altxatuta hantxe egonean geundela, kabinara igo **aurretixe**. Joxe Austin Arrieta

---

aurretratamendu *iz* tratamenduaren aurrekoa.

Gainerako hondakinak bi modu ezberdinetan tratatuko lirateke: batzuk, **aurretratamendu** mekaniko biologikoaren bidez eta besteak beste labe batzuetan erreko lirateke. Berria - Euskal Herria

---

aurretxo *iz adkor* aurrea.

Senara iritsi **aurretxotik**, kale txiki-txiki batean aurkitu zen Max. Jon Muñoz

Zure aitak, hil **aurretxoan**, nire esku utzi zuen hau. Iñaki Mendiguren

Jubilatu **aurretxoan**, goizeko laurak arte jotzen zuen han, etxera etorri, aldatu, eta lanera. Pako Aristi

Egunsentiaren **aurretxoan** lo trinko batek hartu zuen eta goiz erdia arte ez zen esnatu. Patxi Zubizarreta

Bouek Canariasekin su eta ke ekin ziotenean izan zen hortxe **aurretxoan**, Matxitxako eta Billano lurmuturren artean. Edorta Jimenez

---

aurreuste *iz* aldez aurreko ustea.

Hitz egin dezagun lasai, bada, **aurreuste** faltsuak egin gabe, eta egoera askoz ere eramangarriagoa eta ulergarriagoa egingo zaizu. Migel Angel Mintegi

Honen ondorio okerrak aipatzerakoan, adibidez, autodeterminazioaren eta Estatu independentearen arteko lotura ezinbestekoaren **aurreustea** aipatzen da. Joseba Zulaika

---

aurrez **1** *adlag* aldez aurretik.

Aspektu berriak ustekabean sortu zaizkiolako bidean, esku artean, **aurrez** itxaron gabe. Koldo Izagirre

Harik eta eritasun ahitzaile, oinaze gabeko batez hiltzen nintzen arte, **aurrez** prestatuak izango nituen azken hitzak esaten nituen arte, ondoan eramango nituen beti neska haiek. Koro Navarro

Hara non armen helmuga euskal kostaldea zen, zehazki Sopelako hondartza, zeinean, **aurrez** adostutako gau batean, kaxak lehorreratu eta hantxe itxaroten egongo zen talde bati eman behar baitzizkien. Iban Zaldua

Gu euskara kontuekin hasi ginenean, batua bultzatu behar zela eta, zenbait arazo atzeman genituen, baina ez hau bezalakorik **aurrez** ikusi. Pello Salaburu

Museo batera doanari on zaio **aurrez** jakitea zeren bila doan. Anjel Lertxundi

Presakako eta **aurrez** moldatutako ezkontza izan zen Gillesena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hitz hori erabiltzea ez zen kasualitatea izan, **aurrez** ongi pentsatua baineukan zein istorio kontatu eta, gutxi gorabehera, zein hitzekin kontatu. Pako Aristi

Jendilaje honek **aurrez** egindako esaldiekin funtzionatzen du beti, esaldi propioak sortzeko ezgauza. Unai Iturriaga

2 *adlag* aurrean; aurrez aurre.

Emaiozue buelta: **aurrez** ikusita, gaur estreinatu duen jakan orbanak erakusten ditu, eta atzetik ikusita, galtzetan tarratekoa. Itziar Otegi

Bere sorbalden gainetik pasatu zituen nire hankak, **aurrez** ikusten nuen bere aurpegia. Juan Martin Elexpuru

Argazkilari militarrak **aurrez** jartzeko agindu zion, baina ama ez zen jiratu. Juan Kruz Igerabide

Bere azken argazkia -Angela **aurrez** eta hiru laurdenez, graziaz beteriko pose bat osatuz- albistegi guztietan pasatu dute dagoeneko, mila aldiz pasatu ere. Patxi Iturritegi

3 *aurrez aurreko*

Eta honako **aurrez aurreko** figura lausoa, beraren betileetako euriaren atzean. Juan Garzia

Disimuluz, oharkabean bezala, mahaiaren beste aldera joan naiz eta **aurrez aurreko** aulkia hartu dut. Iñaki Zabaleta

Gizon askok erabiltzen dute indar fisikoa eta **aurrez aurreko** liskarra beren arazoak konpontzeko, eta horietako askok emakumeekin ere berdin jokatzen dute, batez ere bikotekidearekin. Luis Elberdin

Ostatua ibaiaren ertzetik bertan samar zegoen, Barrière du Roule-ren **aurrez aurreko** aldean. Koro Navarro

Behin bakarrik ikusten ditu, **aurrez aurreko** saioan. Juan Martin Elexpuru

Atzo herenegun, epaileak afera hau bi interesen arteko **aurrez aurreko** klasikotzat jo zuen: prentsaren askatasuna, alde batetik, eta gobernuak herritarrak zigortzeko duen ahalmena, bestetik. Berria - Gaiak

1971ko lan honek kirol-prakak janzten dituzten oinezkoak erakusten ditu, egoera dibertigarri ugariak sorraraziz **aurrez aurreko** ibilbideek topo egiten dutenean. Berria - Kultura

Ez erabat haren oinean, bestela ez baitzion erreparatuko iparraldeko fatxadaren goialdean - beraren **aurrez aurreko** fatxadan, alegia - eraikin multzo batek egiten zuen isla harrigarriari. Jon Muñoz

Berak, artikulu hartan, garapen teknologikoaren ondorengo lau ondorio hauek aurreratu zituen: Sedentarismoa eta **aurrez aurreko** harreman pertsonalen gainbehera. Txema Ramirez de la Piscina

Aurrez aurreko eserleku doble gehienak erdi hutsik zeuden. Anjel Lertxundi

Ageriko zen dena, ezkutuko bihurtu zen; galdeketak, argiketak, frogaketak, **aurrez aurrekoak**, alderdi publikoaren konklusioak; eta horixe da egungo jardunbidea. Iñaki Iñurrieta

Ez zen ezer berezirik gertatu; soilik bi mujik errusiarrek, ostatuaren **aurrez aurreko** tabernako atean baitzeuden, zertxobait esan zuten kotxeaz, hitz-erdirik ez, ordea, barruan zihoanaz. Jose Morales

Azken korridorean zain geratzen gara, **aurrez aurrekoaren** gela txikiaren atarian. Lander Garro

Linterna txiki bat hartu zuen sorbaldan dingilizka ekarritako zakutotik eta ezker-eskumako izpi mugimendu arina burutu zuen **aurrez aurreko** paretan. Josu Landa

4 *aurrez ikusi* ik **aurreikusi**.

Operazio konplexu samarra zela **aurrez ikusi** zuten zientzialariek, baina dena ondo joan zen. Berria - Gaiak

Eta betiere, **aurrez ikusia** zeukana ikusiz, eta errealitatearen deskribaketa touristique bat eginez. Bernardo Atxaga

Lainezek joan-etorri batzuk egin ditu hogei metroko tartean, **aurrez ikusten** dituen hiru ailegaerei adi. Pello Lizarralde

Liberal zenez gero, 1848ko iraultza **aurrez ikusi** zuen, eta desadostasunak izan zituen liberalismoarekin. Joseba Zulaika

Jakina, hain tontoak ere ez dira eskuindarrak, eta **aurrez ikusia** izango dute noski, eskalerik ez dagoela halako isuna ordain dezakeenik. Joxerra Garzia

5 *aurrez prestatutako janari*

"**Aurrez prestatutako janariak** ekoizten ditu K-Onarik eta bera arduratzen da arrain haragiari itxura emateaz, hanburgerrak plastikozko erretiluetan sartzeaz eta halakoez», zehaztu du Bilbaok. Berria - Harian

6 *aurrez prestatutako plater*

Aginteek eta konpainiek **aurrez prestatutako platerak** dira berriak. Berria - Gaiak

7 *plater aurrez prestatu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Eta horrela, merkatu estrategia ezberdina izango genuke: produktuen aurkezpen berriez hitz egingo genuke; **plater aurrez prestatuez** eta abarrez. ETC-prentsa

Plater aurrez prestatuak: arrautzaztutako barratxoak, surimiak, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahoz aurrez (3); **aintza aurrez agertu** (3); **anaien aurrez aurre** (4); **artean aurrez** (7); **arteko aurrez aurreko** (3); **atariaren aurrez** (3); **atbk aurrez erretiratu** (3); **atearen aurrez aurre** (4); **aurka aurrez aurre** (5)

aurrez abisatu gabe (3); **aurrez adierazi** (7); **aurrez adostutako** (3); **aurrez aipatutako** (6); **aurrez aurre agertu** (3); **aurrez aurre ariko** (3); **aurrez aurre aurkitu** (6); **aurrez aurre begiratu** (16); **aurrez aurre begiratzeko** (11); **aurrez aurre begiratzen** (11); **aurrez aurre bildu** (3); **aurrez aurre dagoen** (12); **aurrez aurre daude** (7); **aurrez aurre dauden** (3); **aurrez aurre dauka** (5); **aurrez aurre daukat** (3); **aurrez aurre ditugun** (3); **aurrez aurre duen** (4); **aurrez aurre dugun** (4); **aurrez aurre edo** (3); **aurrez aurre egin** (9); **aurrez aurre egiten** (8); **aurrez aurre egokitu** (8); **aurrez aurre egon** (9); **aurrez aurre egongo** (6); **aurrez aurre egoteko** (4); **aurrez aurre eman** (3); **aurrez aurre ere** (3); **aurrez aurre esan** (5); **aurrez aurre eseri** (18); **aurrez aurre eserita** (9); **aurrez aurre ez** (6); **aurrez aurre ezagutzeko** (3); **aurrez aurre ezarri** (4); **aurrez aurre gaur** (8); **aurrez aurre gelditu** (8); **aurrez aurre geratu** (10); **aurrez aurre gertatu** (3); **aurrez aurre hitz** (14); **aurrez aurre ikus** (3); **aurrez aurre ikusi** (17); **aurrez aurre ikusiko** (6); **aurrez aurre ikustea** (3); **aurrez aurre ikustean** (5); **aurrez aurre ikusteko** (8); **aurrez aurre ikusten** (8); **aurrez aurre ipini** (6); **aurrez aurre izan** (15); **aurrez aurre izango** (37); **aurrez aurre jarri** (54); **aurrez aurre jarriko** (8); **aurrez aurre jarrita** (4); **aurrez aurre jartzea** (12); **aurrez aurre jartzeko** (5); **aurrez aurre jartzen** (35); **aurrez aurre jo** (28); **aurrez aurre jotzen** (3); **aurrez aurre lehen** (3); **aurrez aurre neukan** (4); **aurrez aurre nire** (3); **aurrez aurre nuen** (5); **aurrez aurre so** (5); **aurrez aurre talka** (3); **aurrez aurre topatu** (5); **aurrez aurre topo** (13); **aurrez aurre zegoela** (3); **aurrez aurre zegoen** (13); **aurrez aurre zeuden** (9); **aurrez aurre zeukan** (11); **aurrez aurre zituen** (3); **aurrez aurre zuela** (4); **aurrez aurre zuen** (7); **aurrez aurreko bilerak** (3); **aurrez aurreko bisita** (7); **aurrez aurreko borroka** (5); **aurrez aurreko paretan** (3); **aurrez aurrekoa** (13); **aurrez aurrekoak** (13); **aurrez aurrekoan** (7); **aurrez aurrekoaren** (3); **aurrez bere** (5); **aurrez beste** (11); **aurrez bi** (4); **aurrez egin** (6); **aurrez egindako** (13); **aurrez eginiko** (4); **aurrez eman** (4); **aurrez erabaki** (8); **aurrez erabakita** (5); **aurrez erabakitako** (4); **aurrez ere beste** (3); **aurrez erretiratu gura** (3); **aurrez erretiratu nahi** (7); **aurrez erretiratuko ditu** (3); **aurrez erretiratutako** (3); **aurrez erretiratzeko asmoa** (3); **aurrez esan** (10); **aurrez esana** (5); **aurrez esandako** (5); **aurrez esandakoa** (5); **aurrez esaten** (3); **aurrez ezagutu** (9); **aurrez ezagutzen** (13); **aurrez ezarritako** (10); **aurrez ezer** (5); **aurrez ezin** (5); **aurrez gorrotatzen ez** (3); **aurrez hartutako** (3); **aurrez hiru** (5); **aurrez hitzartutakoa** (3); **aurrez idatzitako** (6); **aurrez ikus** (3); **aurrez ikusi ez** (3); **aurrez ikusi ezin** (4); **aurrez ikusi zuen** (5); **aurrez ikusia** (11); **aurrez ikusita** (5); **aurrez ikusitako** (5); **aurrez ikusten** (16); **aurrez ikusterik** (3); **aurrez inoiz** (10); **aurrez iragarri** (6); **aurrez iragarria** (7); **aurrez iragarritako** (3); **aurrez iragartzen** (4); **aurrez irudikatu** (4); **aurrez izandako** (5); **aurrez izena** (3); **aurrez jakin** (23); **aurrez jakinda** (3); **aurrez jakitea** (4); **aurrez jakiteak** (3); **aurrez jokaturiko** (3); **aurrez landuriko** (4); **aurrez lau** (3); **aurrez onartu** (4); **aurrez ondo** (3); **aurrez ongi** (4); **aurrez pentsatu gabe** (3); **aurrez pentsatua** (4); **aurrez pentsatuta** (4); **aurrez pentsatutako** (8); **aurrez pentsatutakoa** (3); **aurrez pentsatzen** (3); **aurrez prestatu** (3); **aurrez prestaturiko** (8); **aurrez prestatuta** (4); **aurrez prestatutako** (6); **aurrez sekula** (3); **aurrez sentitu** (3); **aurrez telefonoz** (4); **aurrez uste** (4); **aurrez zegoen** (6)

auto batek aurrez (3); **autok aurrez aurre** (8); **azken aurrez** (4); **baina aurrez aurre** (10); **baitzuen aurrez** (3); **bata bestearen aurrez** (3); **batek aurrez aurre** (11); **baten aurrez aurre** (6); **batzuk besteen aurrez** (3); **begien aurrez aurre** (7); **berak aurrez** (5); **berarekin aurrez aurre** (7); **berriak aurrez** (4); **berriro aurrez aurre** (3); **bertan aurrez** (3); **bestearen aurrez aurre** (3); **besteen aurrez aurre** (3); **beti aurrez aurre** (3); **bi aurrez** (4); **bi autok aurrez** (8); **biak aurrez aurre** (6); **biok aurrez aurre** (4); **daude aurrez aurre** (3); **dela aurrez** (3); **dira aurrez aurre** (28); **dira aurrez aurreko** (3); **dira gaur aurrez** (4); **dirua aurrez** (3); **ditu aurrez aurre** (5); **ditugu aurrez aurre** (3); **dituzte aurrez aurre** (6); **du aurrez aurre** (6); **duen aurrez** (4); **dugu aurrez** (5); **dut aurrez aurre** (4); **dute aurrez aurre** (8); **dute aurrez aurreko** (3); **dutela aurrez** (3); **edo aurrez aurre** (3); **egitea aurrez** (3); **ek aurrez** (3); **elkarren aurrez aurre** (12); **en aurrez aurre** (4); **erabakia aurrez** (4); **erantzuna aurrez** (4); **ere aurrez aurre** (8); **etak aurrez** (3); **ez aurrez** (3); **ez da aurrez** (3); **ez du aurrez** (3); **ez duela aurrez** (3); **gaur aurrez aurre** (9); **gizona aurrez** (4); **guk aurrez** (3); **gure aurrez aurre** (7); **guztia aurrez** (4); **guztiak aurrez** (6); **haien aurrez aurre** (4); **han aurrez aurre** (4); **haren aurrez aurre** (11); **hauek aurrez aurre** (4); **hautagaiak aurrez** (3); **heriotza aurrez aurre** (6); **hiriaren aurrez aurre** (4); **honek aurrez** (3); **hori aurrez** (6); **horiek aurrez** (6); **horren aurrez aurre** (6); **hura aurrez aurre** (6); **iritsi aurrez** (3); **izan dira aurrez** (4); **izan ziren aurrez** (4); **izan zuten aurrez** (3); **izango den aurrez** (4); **izango dira aurrez** (16); **izango dituzte aurrez** (5); **izango du aurrez** (4); **izango dute aurrez** (3); **jainkoak aurrez** (6); **jaunak aurrez** (6); **jaungoikoak aurrez** (15); **jo zuen aurrez** (3); **kamioi batek aurrez** (5); **kontra aurrez aurre** (3); **langileak aurrez erretiratzeko** (3); **mendiaren aurrez aurre** (3); **nahiz aurrez** (3); **nik aurrez** (4); **nire aurrez aurre** (9); **nuen aurrez aurre** (8); **san frantziskok aurrez** (3); **taldea aurrez aurre** (3); **taldeak aurrez aurre** (3); **taldearen erdia aurrez** (3); **topatu zuen aurrez** (5); **zaio aurrez aurre** (3); **zegoen aurrez** (6); **zela aurrez** (3); **zen aurrez aurre** (3); **zion aurrez** (5); **ziren aurrez aurre** (15); **zituen aurrez aurre** (3); **zuela aurrez** (4); **zuen aurrez aurre** (16); **zuen aurrez aurreko** (3); **zuena aurrez** (3); **zuten aurrez aurre** (5)

---

aurrezagutu, aurrezagut(u), aurrezagutzen du *ad* aldez aurretik ezagutu.

Ez dut jada ukatzen Jaungoikoak aurrez ezagutu duen oro gertatu beharra dagoela, eta berak gure bekatuak **aurrezagutu** arren, gure nahimena librea izango dela eta beti egongo dela gure mendean. Imanol Unzurrunzaga

---

aurrezagutza *iz* aldez aurretik gertatutako ezagutzea.

Gogoan duguna ez da **aurrezagutza** bat edo berehalako ezagutzatik apodiktikora doan egoera arkaikoa. Xabier Arregi

Garai hartara arte, **aurrezagutza** garraztu hau justifikatu izan zuen adibide klasikoa errusiar intelligentsiaren hondamenezko porrota izan zen. Iñaki Mendiguren

Libreago bizi nahian ez dezagula Jaungoikoaren **aurrezagutza** uka, beraren laguntzaz soilik baikara edota izango gara libre. Imanol Unzurrunzaga

---

aurrezaintza *iz* aldez aurreko babes bezala egindako zaintza.

"Giza eskubideen zangopilatze larri hauen errepikatzerik ez dadin izan, **aurrezaintza** eta babes sistemak eratu behar dira", ondorioztatu zuten NBEren txostenak Berria - Mundua

Defentsak, ordea, nabarmendu du Polizia arduradunek Moussaouik adina zekitela Al Kaeda zerbait prestatzen ari zela, eta, halarik ere, Gobernuak ez zituela beharrezko **aurrezaintza** neurriak hartu. Berria - Harian

Horretaz gainera, Jaurlaritzak laneko arriskuen **aurrezaintzari** buruzko gidaliburu praktiko bat prestatuko du eta sasoiko beharginei zein nekazariei zuzendutako doako informazio telefonoa martxan jarriko du. Berria - Ekonomia

---

aurrezantzu *iz* aldez aurreko zantzua.

Ezin nuen sinetsi **aurrezantzurik** eta sinbolorik gabeko egun hura zatekeenik nire heriotza gupidagabearen eguna. Juan Garzia

---

aurrezarri *iz* aldez aurretik ezarri.

Aurrezarritako harmonia, naufragiotik Jainkoaren abarora itzultzeko txikot lagungarria duzu. Markos Zapiain

Eta horren bitartez arrazoimena gogobetetzen da eta baldintzatugabekia **aurrezartzen** zaie agerpenei, beti ere baldintzatuak diren agerpen hauen ilaran horregatik nahasketarik eragin gabe eta adimenaren oinarri-esakunerik hautsi gabe. Ibon Uribarri

Eta hala bizi ginen han denok, kontalariak emandako izaerari beti fidel, **aurrezarritako** jokaerak inoiz baztertu ezin, eta, uneoro, nahirik sakonenak ere besteek espero zutenera egokitzen saiatu behar zuten pertsonaia arika eginen antzera. Pako Aristi

Hasteko, zalantzan jarri ditut diskurtsoaren esparru zehaztugabe, monotono eta oparoa tradizionalki zatikatzen duten **aurrezarritako** batasunak. Xabier Arregi

Ezagun dugun zernahi hori, ikusgune baten arabera, beste puntu batzuekiko erreferentzi sisteman, geuk **aurrezarririko** interes (teoriko edo praktiko) batzuen markoan, momentu historiko eta ingurune kultural baten baldintzen arabera, perspektibaren antzera, etab., ezagutzen dugula; ez absolutuki, alegia. Joxe Azurmendi

---

aurrezenbaki *iz* telefono zenbakiei aurretik jartzen zaien zenbakia, eskualde, hiri edo herrialde batekoak beste batzuetakoetatik bereizten dituena.

Lehenengo eta behin, telefono operadoreak behartuta egongo direlako aurrerantzean tarifa gehigarriko telefono zenbakien zerbitzua (803, 806, 807 eta 907 **aurrezenbakia** dutenak) aurretik idatziz eskatu duten bezeroei bakarrik ematera. Berria - Euskal Herria

---

aurrezki 1 *iz* aurreztu den dirua.

Autoa garbituta, soropileko belarra moztuta, **aurrezkiak** bankuan. Oskar Arana

Gezurra izan liteke erosi duela, eta egin dizkion berrikuntzak, bere **aurrezkiak** xahutuz egin zitzakeen, hartara jarriz gero. Aitor Arana

Zure arrebak itsulapikoan sartzen ditu **aurrezkiak**. Itziar Otegi

Horixe erants zezakeen, fraideeneko denboretan bezala, asteko gure **aurrezki** guztiak kartetan irabazi ondoan. Aingeru Epaltza

Banituen **aurrezki** batzuk bilduta, eta ez nintzen ontziratzen Ryoko bakarrik ez uzteagatik. Javi Cillero

2 *iz* aurreztea.

BBKren arabera, azken datu hori hipoteka maileguek, ageriko **aurrezkiak** eta inbertsio funtsek eragin zuten, eta Plan Gidariko helburuak ere gainditu zituen. Berria - Ekonomia

Askoren **aurrezkia** baten eskuetan. Xabier Olarra

Aurrezkiari buruzko itxaropena da konfiantza indizearen osagarrietan balio positiboan dagoen bakarra. Berria - Ekonomia

Aurrezkia, Horazio, **aurrezkia**! hiletako opila beroak eztei-mahaietako jaki izan ditiagu hotzean. Juan Garzia

3 ***aurrezki kutxa*** korritu baten truke aurrezkiak ezartzen diren etxea.

Dena den, nabarmendu du funtsezkoa dela **aurrezki kutxek** proiektuan parte hartzea. Berria - Ekonomia

Amak soldataren erdia xahutzen zuen, eta askotan hori ere ez, eta gainerakoa **aurrezki kutxa** batean sartzen zuen nire izenean. Juan Kruz Igerabide

Zati bat bai, baina gehiena **aurrezki kutxan** neukan oraindik, eta diru harekintxe pentsatzen nuen argitaratzea Juanito Muñagorriri buruzko azterketa. Xabier Mendiguren Elizegi

Elkartu dira bizipide berri batzu aurkitzeko, **aurrezki kutxa** bat sortzeko, oinarrizko tresneriak eskuratzeko, baratze batzu moldatzeko. Herria

Ez nien gurasoei aitatu nahi, **aurrezki-kutxa** gora, aurrezki-txartela behera, hasiko zitzaizkidan teman eta. Jesus Mari Mendizabal

4 ***aurrezki libreta*** aurrezki liburuxka.

Banku-dirua, alegia, bere **aurrezki libretan** edo beste finantza-produktu batean agertzen den anotazio kontablea: gordailua. Iñaki Heras

Kutxazain batek zenbaki batzuk eransten zituen nire **aurrezki libretan**, eta horrek diruz hornituta nengoela adierazten zuen. Koro Navarro

- **Aurrezki libretak** dituzten bezeroak alde honetan mesedez, libretak eskuan harturik. Xabier Olarra

5 ***aurrezki plan***

Estatu Batuetan, adibidez, umea jaiotzen den unean berean hasten dira familiak **aurrezki plan** bereziak egiten ume hori handik 18 urtera unibertsitatean sartzeak ekarriko dizkien arazoei aurre egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

aurrezle *izond/iz* aurrezten duena. ik **aurreztaile**.

Aurrezleak gehien erakarri dituzten produktuak inbertsio funtsak izan ziren joan den urtean. Berria - Ekonomia

Halaber, **aurrezleentzat** ere diru egonkorragoa eta beraz erakargarriagoa izango da euroa. Iñaki Heras

Banku batean **aurrezleari** ez zaio sekula horrelako ezertaz jabetzen uzten. Xabier Olarra

---

aurrezpen 1 *iz* aurrezkia.

Egoera konpontzeko beste **aurrezpen** bat egiteko aukera baztertu zuen atzo Hans Eichel Finantza ministroak, bere iritziz, "okerreko emaitza" ekarriko lukeela. Berria - Ekonomia

Edonola ere, AEBei dagokie erruaren zatirik handiena, ez baitute ezer egin familien eta gobernuaren zorra mugatu eta **aurrezpena** bultzatzeko. Berria - Ekonomia

2,4 litroko motorrak kostuak murrizteko modurik txarrena dira, ez baita **aurrezpenik** izango eta alderantziz, arazoei aurre egiteko diru asko xahutuko da. Berria - Kirola

2 *aurrezpen plan* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Malgutasuna eskatzen dute, hain zuzen, Atenaseko gobernuarekin negoziatzen ari direnean 11.600 milioi euroko **aurrezpen plan** bat. ETC-prentsa

Batzordeak azaldu duenez, zuzendaritzak asmoa zeukan aste honetan "**aurrezpen plan** bat" aurkezteko sindikatuei, baina atzera egin du. ETC-prentsa

---

aurreztaile *izond/iz* aurrezten duena. ik **aurrezle**.

Nominalista ontologikoki **aurreztailea** da: karga ontologiko gutxiagorekin ahalmen bera izan nahi du. Askoren artean

Emakume **aurreztailea** izan zen betidanik, premia urrikoa eta gutiziarik batere gabekoa, eta bere kabuz moldatu izan zen luzaroan. Mirentxu Larrañaga

BBK-ko buruak eskerrak eman zizkien **aurreztaileei**. Berria - Ekonomia

---

aurreztu, aurrez(tu), aurrezten **1** du *ad* diruaren zati bat etorkizunerako gorde.

Dirua **aurrezteak** horretara iristeko modua ematen du. Lopez de Arana

-Urrun hartan **aurreztu** ahal duzun guztia, alferrikako gastuak saihestu, eta ardoa eta txerrikia. Patxi Zubizarreta

Bakoitzak sei penike **aurreztu** genituen. Irene Aldasoro

Hortaz, zeukan diru apurra **aurreztu** egingo zuen, ezkutatutako altxorrez mintzo zen amets bat zela eta! Xabier Aranburu

Langileek taldearen **aurrezte** plana onartzea da akordioaren baldintza . Berria - Ekonomia

Badakik gurasoek **aurrezteko** teoria horiek dituztela eta "egunen baterako" gorde beharraren kontu hori, nahiz, haiei gertatzen zaien bezala, "egun hori" ez den inoiz iristen. Jon Muñoz

Diru pixka bat bazuen **aurreztua**, eta Donostiara joatea pentsatu zuen, hemezortzi bat urte zituela, soinua erostera. Xabier Etxabe

Sos batzuk zituzten **aurreztuta**, eta zerbaitetan inbertitu behar. Joan Mari Irigoien

Asunekin moldatzen naizela, eta fabrikan hasi nahi dudala, dirua **aurrezteko**. Alberto Barandiaren

Aurreztuta zeuzkan diruak behartsuen artean banatzen hasi zenean bakarrik hartu zuten Dartaiet erotzat eta nire pabilioi berera ekarri. Anjel Lertxundi

2 du *ad* baliabideez, energia iturriez eta kidekoez mintzatuz, gutxiago gastatu.

Energia modu eraginkorrean erabiltzeko aurrera eramango duten programaren bidez, urtean petrolioaren 975.000 tona baliokide (ptb) **aurreztea** espero du Jaurlaritzak. Berria - Ekonomia

Gorputzean ere, makina gehienetan bezala, oso desiragarria da pisua kentzea, erregaia **aurreztu** eta eraginkortasuna areagotzen baita hartara. Irene Aldasoro

Kabinako argi nagusia aspaldi itzalia zuten, bateria **aurreztearren**. Joxe Austin Arrieta

3 irud/hed

-Nire lana egiten ari naiz -azaldu zuen artaburu hark, bueltatu ere egin gabe-, eta arnasa **aurreztuko** genuke zuek ere zuena egingo bazenute. Koldo Biguri

Denbora **aurrezten** ari gara etengabe jaio ginen egunetik. Pako Aristi

Erlijioan **aurrezteko** legeak egin izan dira. Iñaki Iñurrieta

Tenplu dipteroari barruko kolomen ilarak kendu zizkion, hogeita hamalau guztira, eta horrekin kostu eta lan handiak **aurreztu** zituen. Santiago Iruretagoiena

Parrastada guztia **aurrezteko** gogoz zebilen, dudarik gabe. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aurreztu ahal izango** (4); **aurreztu behar** (6); **aurreztu nahi ditu** (4); **aurreztu zituen** (3); **dirua aurreztu** (9); **euro aurreztu nahi** (5); **milioi euro aurreztu** (9)
>
> **aurreztea espero du** (5); **aurreztea lortu** (5); **diru aurreztea** (4); **dirua aurreztea** (6); **energia aurreztea** (3); **milioi euro aurreztea** (7)
>
> **ura aurreztean** (3)
>
> **aurrezteko ahalmena** (3); **aurrezteko asmoz** (3); **aurrezteko joera** (3); **aurrezteko plana** (6); **denbora aurrezteko** (3); **dirua aurrezteko** (13); **energia aurrezteko** (11); **milioi euro aurrezteko** (4); **ura aurrezteko** (5)
>
> **aurrezten ari** (5); **aurrezten da** (3); **aurrezten du** (5); **dirua aurrezten** (9); **euro aurrezten** (3); **lana aurrezten** (3)
>
> **aurreztuko direla** (5); **aurreztuko dituzte** (4); **aurreztuko lirateke** (3); **euro aurreztuko ditu** (3); **milioi euro aurreztuko** (10)

---

aurri **1** *iz* hondakina.

Ez dakite argi zer egin moila, kanal, garabi, tximinia eta bestelako **aurriekin**, baina borroka partikularrari eusteko arrazoi bat gehiago ematen diete aldioro. Urtzi Urrutikoetxea

"Roma quanta fuit ipsa ruina docet", bertako hondarrek, **aurriek**, erakusten digute Erroma zein handia izan zen, hori izan zen Sebastiano Serlio-ren Arkitekturako Hirugarren Liburuaren atarikoan, 1540. urtean, jarburu azalduko zen esaera enblematikoa. Santiago Iruretagoiena

Hondakin hauek ez daukate nehondik ere antzinako **aurrien** itxura. Koldo Izagirre

Zantarra iritzi nion Atenasi, balkanikoa, imajinatu ere ezin nuen egin nolako etxeetan bizi zen hango jendea, hiriska bat, ia herriska bat esango nuke, levantinoa, jende-inurritegiak karrika erdian, eta ostera berriz bakar-mortua, **aurri**-hondakinak, hiri handi plantako imitazio batzuk ere bai tarteka, izugarri itsusia. Joxe Austin Arrieta

2 *aurri izan* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Mendi hegiko zuhaiztian zehar-zehar **aurri diren** bi borda eta Lastaola baserria utziko dituzue lepo batera iritsi aurretik. ETC-prentsa

Hughek, zigarreta bat bildu zion Yvonneri, gogo galdurik ingurura begira, hain zirudien lekuak **aurri izatearekin** konforme. ETC-literatura, saiakera

3 *aurri zorian egon* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Aurri zorian zegoela-eta, 1993an gorritiarrek erabat berritu zuten, eta santak, kondairak dioen moduan, inguruko alorrak tximista eta harri txingorretik babesten jarraitzen du. ETC-prentsa

Haren ondorengoarenak, naski; **aurri-zorian dago** orain. ETC-prentsa

2004an, errefuxiatuak hoteletik kendu zituzten eta 7.000 dolar eskaini zieten gela bakoitzeko. **Aurri-zorian zegoen** hotelari altzairuzko inguruko egitura kendu zioten, eta Radisson Hotels taldeak kudeatuta, luxuzko negozio hotel modernoaren bezalako erabat eraberritua. ETC-entziklopedia

---

aurrikusi ik **aurreikusi**.

---

aurrikuspen ik **aurreikuspen**.

---

aurrindu, aurrin, aurrintzen da/du *ad* Egokitu, bat etorri.

Entsegu bat egin gogo dute hola anaiek eta aipu dute ere, **aurrintzen** badira, Patxi Ruiz eta Belokiren kontra jokatzea. Herria

Ikusirik herri hortan ez dela musikari eta musikazale faltarik, denen artean nahi dituzte elgarren idaiak eta lanak **aurrindurik** ezarri, Aier Motriko eta besteek. Herria

---

aurriritzi ik **aurreiritzi**.

---

aurritu, aurri, aurritzen da/du *ad* hondatu, higatu.

Aldi berean, ordea, behin harriaren egitura porotsuarengatik morteroak bere bustitasuna galdu duenean, eta karea eta harea elkarrengandik banandu eta desegiten direnean, harria ere trabatu gabe geratuko da eta denborarekin hormak **aurritu** egingo dira. Santiago Iruretagoiena

Harri bigunez eta aurpegi fin edergarri hutsez eginda daudenek ez dute luzaro iraungo **aurritu** gabe. Santiago Iruretagoiena

---

aurrizki 1 *iz* hitzari aurrean ezartzen zaion morfema.

Zeinek ez du aditu nano- **aurrizkia** daraman hitzen bat? Berria - Gaiak

Hori da hain zuzen agertu nahi genukeena hitzaren zatiak diren **aurrizki**, erro, erradikal, atzizki eta desinentziei buruzko oharpen batzuk egitean. Isabel Arrigain

Kasu horietan, hitz moztuak, mozorroak, atzizkiak eta **aurrizkiak** erabil daitezke. Askoren artean

Marratxoa ere erruz erabili zuen, ba **aurrizkiaren** eta adizkiaren artean, esate baterako: ba-daki. Koldo Zuazo

2 ***aurrizki notazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Matematikan, poloniar notazioa, **aurrizki notazioa**, idazkera poloniarra edo prefixu bidezko notazioa notazio mota bat da logikarako, aritmetikarako eta aljebrarako. Poloniar notazioan ez da adierazi behar parentesirik, ez beste mugatzailerik aurrena egin behar diren kalkuluak adierazteko. ETC-entziklopedia

3 ***SI aurrizki*** *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi)*

SI aurrizkiak bere multiploak eta azpimultiploak izendatzeko Nazioarteko Unitate Sistemaren (Nazioarteko Unitate Sistema SI, frantsesezko "Système International d'unités") edozein unitateri jarri ahal zaizkion aurrizkiak dira. ETC-entziklopedia

SIan, masa unitateen artean **SI aurrizkiak** txertatzeko sustraia "gramo"a da eta ez "kilogramo"a. ETC-entziklopedia

---

aurtemein *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *adlag* duela gutxi.

Baina, hala nola Odetteren esaerak, irribarreak, muxuak, berarentzat zirenean gozo baina, beste norbaiti zuzenduak izanez gero, gorrotagarri iruditzen zitzaizkion, halaxe, Verdurintarren saloia ere, **aurtemein** oraindik hain libertigarri, hain egiazki artezale eta hain noblezia moralaren arnasa-leku zeritzona, [...] ETC-literatura, saiakera

Eriotza esan nuen **aurtemein**; frakasoa gaur. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

aurtemeingo *izlag* duela gutxikoa.

Badirudi eite horretako oinarriak erabat ahaztu direla, gure **aurtemeingo** hipoteka legeetan eman diren idatzaldietan. Andres Urrutia

---

aurten *adlag* urte honetan.

Iaz ez zen sektore horretan hildakorik egon; **aurten**, ordea, lagun bat hil da. Berria - Ekonomia

Oso luze, oso motel, nagi eta berandutiar ibili da **aurten**. Pello Zabala

Urteroko bisita zor dio, eta **aurten** ez da oraindik izan. Paddy Rekalde

Badakizue **aurten** Eskualde Kontseiluak bere kontuetan laurogei milioiko zuloarekin bukatuko duela, aipatu gabe egoera berdinean dauden Kontseilu Orokorra eta Herriko Etxeak. Itxaro Borda

Horrelako bitxoaren parean hautagaiak emendatu dira halere **aurten**. Herria

-Negu hotza dugu **aurten**, e? -agur gisa, zerbait esateagatik, trabagarri izaten baitzitzaion dirua eskatzea. Iñaki Zabaleta

Aurten hogeita bi kide hil dituzte eta dozenatik gora jornalari dira finken okupazioetan eraildakoak! Jon Maia

Aurten jaioak, adibidez, mende batean jaio eta mende berean hilko dira gehienak. Joxerra Garzia

Honenbeste liburu argitaratu omen da **aurten**, gero eta gehiago urtez urte, baina ez gara hor hausnarketa sakonagorik egiten saiatzen. Pello Salaburu

Sarri aipatu dugu **aurten** gai hau, bioaniztasunaren galeraren inguruan ikerketa lan mardulak egin direlako. Berria - Gaiak

Galtzea tokatuko zaigu **aurten** ere, Patri, eta, gainera, geu ez beste inor ez da izango filmeko bandido gaiztoa. Hasier Etxeberria

Eskolako komedorerako **aurten** kendu digute laguntza; argindarra ere pagatu behar da. Pablo Sastre

Aurten ere argi esan diet etorri aurretik, baina beti txantxetan aritzen naizela uste izaten dute. Arantxa Iturbe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aldikotz aurten** (7); **aldiz aurten** (7); **antolatu du aurten** (6); **ari da aurten** (16); **ari dira aurten** (9)
>
> **aurten aldaketa** (7); **aurten aldiz** (6); **aurten amaitzen** (9); **aurten arte** (10); **aurten azken** (11); **aurten bada** (6); **aurten bai** (15); **aurten baina** (6); **aurten baino** (21); **aurten beraz** (16); **aurten berean** (26); **aurten bereziki** (9); **aurten berriro** (15); **aurten berriz ere** (7); **aurten bete** (7); **aurten betetzen** (15); **aurten bezala** (10); **aurten bi** (36); **aurten bigarren** (9); **aurten bost** (12); **aurten bukatuko** (6); **aurten dagoeneko** (7); **aurten dena** (7); **aurten denboraldi** (6); **aurten dira** (6); **aurten donostiako** (10); **aurten egin** (34); **aurten egindako** (9); **aurten eginen** (7); **aurten egingo** (14); **aurten egiten** (17); **aurten egun** (6); **aurten ehun urte** (9); **aurten ere arrakasta** (7); **aurten ere euskal** (8); **aurten ere ez** (18); **aurten ere gure** (6); **aurten ere hala** (8); **aurten erredakzioa** (10); **aurten espainiako** (6); **aurten europako** (17); **aurten euskal herrian** (7); **aurten euskal herriko** (10); **aurten ez da** (42); **aurten ez dago** (6); **aurten ez dela** (6); **aurten ez du** (12); **aurten ez dugu** (8); **aurten ez dute** (7); **aurten ezin** (9); **aurten gauza** (6); **aurten gertatu** (7); **aurten gure** (16); **aurten haatik** (12); **aurten hasi** (15); **aurten hasiko dira** (7); **aurten hiru** (16); **aurten hirugarren** (8); **aurten hori** (9); **aurten ia** (8); **aurten iaz baino** (9); **aurten iazko** (6); **aurten ikusi** (8); **aurten inoiz baino** (13); **aurten izan** (16); **aurten izango** (7); **aurten jada** (12); **aurten jon** (6); **aurten lan** (6); **aurten lau** (15); **aurten lehen aldikotz** (12); **aurten lehen aldiz** (24); **aurten lehenengo aldiz** (6); **aurten lortu** (7); **aurten maila** (6); **aurten marka** (6); **aurten munduko** (14); **aurten onartu** (6); **aurten oraino** (10); **aurten oso** (7); **aurten ospatzen** (17); **aurten parte** (8); **aurten san** (9); **aurten sei** (9); **aurten talde** (9); **aurten txapelketa** (8); **aurten urte** (6); **aurten zerbait** (7); **aurten zortzi** (7)
>
> **badira aurten** (6); **badirudi aurten** (7); **baina aurten ez** (30); **bainan aurten** (22); **baita aurten** (17); **beraz aurten** (8); **bete dira aurten** (8); **bete ditu aurten** (13); **beteko ditu aurten** (14); **betetzen ditu aurten** (7); **bezala aurten ere** (20); **bilduko dira aurten** (6); **da aurten ere** (42); **dago aurten** (12); **daiteke aurten** (6); **dela aurten** (30); **den aurten** (8); **dio aurten** (17); **dira aurten ere** (13); **direla aurten** (13); **ditu aurten bere** (6); **ditugu aurten** (10); **donostia aurten** (8); **du aurten ere** (33); **dugu aurten ere** (8); **dut aurten** (16); **dute aurten ere** (13); **dute parte aurten** (6); **dutela aurten** (6); **duzue aurten** (7); **ea aurten** (12); **egin ditu aurten** (6); **egin du aurten** (17); **egin dute aurten** (13); **egingo da aurten** (9); **egingo dituzte aurten** (7); **egingo du aurten** (7); **egingo dute aurten** (9); **egokitu zaio aurten** (6); **eguna aurten** (9); **ehun urteak aurten** (6); **ekonomia aurten** (10); **eman diote aurten** (6); **ere aurten** (21); **espero du aurten** (9); **ez aurten** (15); **ez da aurten** (8); **ez du aurten** (8); **gobernuak aurten** (6); **hau aurten** (6); **haziko da aurten** (9); **hor aurten** (8); **hori aurten** (9); **iaz eta aurten** (7); **irabazi ditu aurten** (11); **irabazi du aurten** (14); **iraganen da aurten** (7); **izan aurten** (6); **izan da aurten** (34); **izan dira aurten** (17); **izan ditu aurten** (10); **izan du aurten** (13); **izan dute aurten** (6); **izanen da aurten** (10); **izango aurten** (6); **izango da aurten** (25); **izango dira aurten** (11); **izango ditu aurten** (8); **izango du aurten** (18); **izango dute aurten** (6); **jasoko du aurten** (6); **jasoko dute aurten** (7); **jaurlaritzak aurten** (9); **jaz bezala aurten** (12); **jokatu du aurten** (6); **jokatuko da aurten** (13); **lanak aurten** (8); **lortu ditu aurten** (8); **nahi ditu aurten** (7); **nahi du aurten** (8); **nahiz eta aurten** (6); **realak aurten** (6); **sailak aurten** (6); **taldeak aurten** (10); **urte aurten** (16); **zabortegia aurten** (9); **zen aurten** (17); **ziren aurten** (8); **zuen aurten** (35); **zuten aurten** (15)

---

aurtengo 1 *izond* urte honetakoa.

Zoriontzeko txartel bat **aurtengo** abuztukoaren aldean. Aingeru Epaltza

Aurtengo neguan, jatekoaren bila zebilela, hartz zuri gose hamikatu bat Groyako etxolak puskatu ondoan, Conchera arribatu omen da igerika. Aurelia Arkotxa

Ustegabe haundiak ezagutu ditu **aurtengo** esku-huska horien bururatzeak. Herria

Eta **aurtengo** sagardoa parametro horietatik gertu dago. Berria - Euskal Herria

Horiek dira **aurtengo** deskalabruaren errudunak. Joxerra Garzia

Gutxi gorabehera, hortxe ibiliko baita **aurtengoa** ere. Pello Zabala

Kontatuko dizut akaso **aurtengo** igeriketa-irakasleak noren antza duen. Arantxa Iturbe

Adin zehaztugabeko emakume txiki bat da **aurtengo** inspektorea, eta begirada paseatzen ari da gelan barrena, ezker-eskuin, aurrera eta atzera. Joxerra Garzia

Nik ere, zuk bezala, Markos, amorrua eta gorrotoa sentitu ditut pisukidearen **aurtengo** portaera dela eta. Jon Arretxe

-Ez dut **aurtengorik** nahi eta ez dakit ze urtetakoa den. Xabier Etxabe

Bihotz onez edo hiltzera doazen izateen gozatzeko egiten zen eran, oparitu **aurtengo** ardo botila bat. Itxaro Borda

Eta jakina: ihazko iraultzailea izanen dugu **aurtengo** urkatzaile. Patziku Perurena

Horren karrera amaitutzat eman eta hara!, iazkoan ondo eta **aurtengoa** ere ondo, pentsatu du Ernest Hemingwayk. Edorta Jimenez

2 *adlag*

Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Sailak elkartasunezko egitasmoak bideratzeko 30,5 milioi euro aurreikusi ditu **aurtengo**. Berria - Euskal Herria

3 *aurtengoan*

-Ni jeneralean lagun batekin ibiltzen naiz, baina **aurtengoan** huts egin dit. Patxi Zubizarreta

-Azpimunduko ateak ez dira **aurtengoan** zabalduko. Joanes Urkixo

Aurtengoan ez dugu gari faltarik izango. Felipe Juaristi

4 *aurtengoz*

Galdu dut **aurtengoz** neure mahastia. Askoren artean

Onerako eta txarrerako, Pasaiako trainerurik ez da izango bi lehiaketa horietan, eta, beraz, **aurtengoz** amaitu dute denboraldia. Berria - Kirola

Badirudi amaituta daudela ospakizunak **aurtengoz**. Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aurtengo aberri eguna (14); **aurtengo aberri egunean** (9); **aurtengo apirilaren** (9); **aurtengo apirilean** (8); **aurtengo aurrekontua** (7); **aurtengo aurrekontuak** (6); **aurtengo aurrekontuetan** (7); **aurtengo azken** (17); **aurtengo azoka** (9); **aurtengo azokan** (6); **aurtengo banakako** (6); **aurtengo berezitasuna** (11); **aurtengo berrikuntza** (7); **aurtengo berritasun** (6); **aurtengo berritasuna** (9); **aurtengo beste** (6); **aurtengo bi** (12); **aurtengo bigarren** (16); **aurtengo biltzar nagusia** (6); **aurtengo binakako txapelketan** (6); **aurtengo bozetan** (6); **aurtengo buruz buruko** (7); **aurtengo buruz burukoan** (6); **aurtengo casino kursaal** (8); **aurtengo denboraldi** (6); **aurtengo denboraldia** (22); **aurtengo denboraldiari** (7); **aurtengo denboraldiko** (24); **aurtengo denboraldirako** (13); **aurtengo diru** (10); **aurtengo edizioan** (6); **aurtengo egitaraua** (13); **aurtengo egitarauan** (7); **aurtengo egitasmoak** (7); **aurtengo ekaina** (8); **aurtengo ekitaldiak** (17); **aurtengo ekitaldiaren** (7); **aurtengo ekitaldiari** (12); **aurtengo ekitaldiko** (11); **aurtengo ekitaldirako** (12); **aurtengo emaitzak** (7); **aurtengo erronka** (10); **aurtengo eskuz banakako** (12); **aurtengo euskadiko** (17); **aurtengo euskal herriko** (9); **aurtengo finala** (13); **aurtengo frantziako** (11); **aurtengo gai** (6); **aurtengo gaia** (12); **aurtengo gazte** (12); **aurtengo hau** (25); **aurtengo haur kantu** (10); **aurtengo hauteskundeetan** (7); **aurtengo helburu** (6); **aurtengo helburua** (11); **aurtengo herri urrats** (7); **aurtengo herriko bestak** (6); **aurtengo hirugarren** (6); **aurtengo huntan** (11); **aurtengo ihauteriak** (6); **aurtengo ikasturtean** (13); **aurtengo ikasturterako** (7); **aurtengo kermeza** (8); **aurtengo korrika** (6); **aurtengo lan** (11); **aurtengo lau t** (20); **aurtengo lehen hiruhilekoan** (14); **aurtengo lehen sei** (9); **aurtengo lehen seihilekoan** (6); **aurtengo lehenengo hiruhilekoan** (6); **aurtengo lehiaketa** (10); **aurtengo lehiaketaren** (7); **aurtengo leloa** (9); **aurtengo lema** (9); **aurtengo maiatzaren** (11); **aurtengo maiatzean** (16); **aurtengo martxoan** (9); **aurtengo martxoaren** (15); **aurtengo munduko** (15); **aurtengo nafarroa oinez** (8); **aurtengo nafarroako** (10); **aurtengo negoziazio** (12); **aurtengo neguan** (11); **aurtengo otsailaren** (7); **aurtengo otsailean** (10); **aurtengo san** (8); **aurtengo sasoia** (6); **aurtengo sasoian** (8); **aurtengo sasoina** (6); **aurtengo sei** (6); **aurtengo top** (6); **aurtengo tourra** (7); **aurtengo tourrean** (11); **aurtengo tourreko** (10); **aurtengo txapeldunak** (6); **aurtengo txapelketa** (28); **aurtengo txapelketak** (9); **aurtengo txapelketako** (7); **aurtengo txapelketan** (31); **aurtengo txapelketaren** (6); **aurtengo uda** (26); **aurtengo udako** (18); **aurtengo udan** (43); **aurtengo urtarrilaren** (11); **aurtengo urtarrilean** (18); **aurtengo urtarriletik irailera** (6); **aurtengo urte** (9); **aurtengo urtea** (13); **aurtengo uztailean** (6); **aurtengo xapeldunak** (14)

baina aurtengo (33); **baita aurtengo** (8); **beraz aurtengo** (10); **bere aurtengo** (13); **da aurtengo ekitaldia** (8); **da eta aurtengo** (7); **dela aurtengo** (8); **den aurtengo** (12); **dio aurtengo** (9); **diote aurtengo** (9); **diren aurtengo** (8); **ditu aurtengo lehen** (11); **ditugu aurtengo** (6); **dituzte aurtengo** (20); **donostia aurtengo** (20); **du aurtengo denboraldian** (8); **duela aurtengo** (6); **duen aurtengo** (8); **dugu aurtengo** (12); **dute parte aurtengo** (10); **ere aurtengo** (10); **hasiera aurtengo** (6); **hasiko da aurtengo** (10); **huna aurtengo** (9); **iazko eta aurtengo** (8); **irabazi ditu aurtengo** (10); **irabazi du aurtengo** (12); **iragan da aurtengo** (7); **izan da aurtengo** (26); **izan dira aurtengo** (6); **izanen da aurtengo** (6); **izango da aurtengo** (39); **izango dira aurtengo** (13); **izango du aurtengo** (8); **jaialdiaren aurtengo** (7); **jokatuko da aurtengo** (6); **jokatuko dute aurtengo** (7); **parte aurtengo ekitaldian** (7); **zen aurtengo** (25); **ziren aurtengo** (8); **zuen aurtengo** (32); **zuten aurtengo** (9)

aurtengoa baino (15); **aurtengoa ere** (17); **aurtengoa ez da** (6); **baina aurtengoa** (6); **du aurtengoa** (22); **dute aurtengoa** (7); **izan da aurtengoa** (10); **izango da aurtengoa** (20)

aurtengoak ere (13); **aurtengoak ez** (10); **dira aurtengoak** (7); **du aurtengoak** (6)

aurtengoan ere (9); **baina aurtengoan** (7); **du aurtengoan** (6)

aurtengoari begira (6)

---

aurtiki, aurtiki, aurtikitzen du *ad* jaurti.

Haurra kanpora **aurtikitzen** ari zen emaztearen sabeletik uholdetu odolarekin zeruko ura nahaspulotzen zela ohartu zen Graxi. Itxaro Borda

Sorpresa izan da joan den asteko etxeen **aurtikitzea**, hitzemana baitzioten helduden buruila arte hor, beren etxeetan azken mementoraino bizitzen ahalko zirela. Herria

Gure aurka **aurtiki** nahi duten gezia, izatez, beren kontra bihurtzen zaie horrela. Piarres Xarriton

Burutik zangoetaraino, ditugun ile guziak mozten dizkigute, eta buruz behera animaleko untzi baten barnera **aurtikitzen**. Marzel Etxehandi

Aski edan behar baitzuten mikroaren aitzinean beren ahotsak **aurtikitzeko**. Berria - Kultura

Izpiritua non-nahi jabetzen zaio, lurrerat **aurtikitzen** du, eta haurra, haguna dariola eta hortz-karrasketan, gogor-gogorra jartzen da. Michel Oronoz

Ohartuko zenion albiste horren ondorioari, eta sumatuko duzunez, itzuli nintzenean horra non kanpora **aurtikia** izana nintzen, egoera hark bere baitan zekarren duintasun guztiaz. Jon Muñoz

Ez, baina laster jakin zen amerikano airekoak zirela eta Miarritzeko hondartza edo plaiara bonbak **aurtiki** zituztela, anitz hil eta kolpatu eginez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurtiki zion (3); **aurtiki zituzten** (3); **aurtiki zuen** (8); **gainera aurtiki** (3)

---

aurtikiarazi, aurtikiaraz, aurtikiarazten du *ad* aurtikitzera behartu.

Dindilizka keinatu zuen: tiroa naturan galdu zen; bigarrenak ere airea baizik ez zuen zulatu; hirugarrenekoaz azkenean sugeari lepoa urratu zion, ezten iluna kanpoan burua batera eta gorputz malgua bestera **aurtikiaraziz**. Itxaro Borda

---

aurtikitzaile *iz* jaurtitzailea.

Harri-**aurtikitzaile** aparta zen Gilen. Aingeru Epaltza

---

aurtikitze *iz* jaurtitzea.

Sorpresa izan da joan den asteko etxeen **aurtikitzea**, hitzemana baitzioten helduden buruila arte hor, beren etxeetan azken mementoraino bizitzen ahalko zirela. Herria

Orduan, aintzineko indardun otsoaren itxura agerienak **aurtikitzea** zen lanetan presatuena. Herria

---

aurton *adlag* aurten.

Esker ona zor diet "Boris", "Ardoa baino ez", "Nire aitaren etxea", "Itzalak" bezalako ipuinei, sarritan salbatu baitizkidate eskolak **aurton**. Markos Zapiain

Lan horretan **aurton** hasi bada ere, eskarmentu handia hartu du dagoeneko. Berria - Harian

Aurton ez dabil fin ate aurrean, baina talde zuri-gorriko erreferentzia da erasoan. Berria - Kirola

---

aurtza *(ETCn **11** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **abortza** agertzen da; corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* itsasontzi arinen azpialdean izaten den ohol bertikala, alboko egonkortasuna lortze aldera. ik **abortza**.

Elizdorrerik -belarik- ez duen hiriak -ontziak- sustraietan - **aurtzan** - antzinakotasun eza erakusten du. Edorta Jimenez

Elizdorrerik -belarik- ez duen hiriak -ontziak- sustraietan - **aurtzan** - antzinakotasun eza erakusten du. Edorta Jimenez

Gogoratu beharra daukat **aurtza** goratzeaz, abiatzen garenean. ETC-literatura, saiakera

Belaontzi handia dela irudikatzeko, munduko handienetako beste batekin alderatuta, Mallorcan dagoen batekin konparatuta, hark 18 tonako **aurtza** du, eta honek 50 tonakoa izango du. ETC-prentsa

---

aurtzaka *adlag* nagibazioan, haize kontra eginez.

Gainera, karrakak, izatez, belak estutu eta **aurtzaka** nabigatuz haizerik gaitzenari aurpegi emateko gai ei ziren arren, edo esan behintzat halaxe zioten arren, halako batean suertatu zitzaigun itsaso zatarraren zatarrak egia besterik zela erakutsi zigun. Edorta Jimenez

-Aurtzaka egin, astapotro hori! -garrasi egin zuen ahots irlandar batek, Smeerenak. Julen Gabiria

---

aurtzatu, aurtza(tu), aurtzatzen du *ad* nagibazioan, haize kontra egin.

Belak triangelu gorrizta bat zirudien, ontziak zementuzko pasealekutik urrats gutxi batzuetara **aurtzatu** zuenean. Lopez de Arana

---

ausagailu *iz* dibertimendua.

Ez zen, ez, **ausagailu** arraroagorik! Itxaro Borda

Azken zatian aipatzen dira itsas-bazter hortako **ausagailuak**, nun nola ibiltzen ahal den arraintzan, nun itsas lerra-jokoetan, nun golfean eta beste joko batzuetan. Herria

Txirrindulariak heldu aintzin, helmugan badira **ausagailu** frango. Herria

---

ausardia **1** *iz* arriskuen aurrean atzera egiten ez duenaren jokaera.

Libertatea eta **ausardia** abesten du Baigorriarraren obrak. Herria

Ausardia -doinu behartu bat zuen nire ahotsak, eta lotsaturik nengoen nire estrategia ziztrinaz. Irene Aldasoro

Demokrata zintzoa zen, demokrazia zer zen Europatik zetozkigun liburu eta modetan ikasi uste genuen hartan, injustiziak salatzeko **ausardia** zuten haietarikoa, gu legezkoek lagun erabilia; aingeru baliagarria, esango nuke. Koldo Izagirre

Jon mundura ekarri izanak, ordea, **ausardia** eman zion honetaz eta hartaz iritzi emateko, lehen bakanetan baino egiten ez zuena. Jokin Muñoz

Kunderari konpromisoa eta **ausardia** eta zorroztasuna txalotzen zizkiotenek soborno triste bat eskaintzen diote beste honi. Xabier Mendiguren Elizegi

Gauza bakarra nahi dut, ihes egin, lasterka egin, baina ez dut horretarako **ausardiarik**. Mirentxu Larrañaga

Mikelen ahots tonua aldatu egin zen, **ausardiaz** mintzatzen saiatzen. Unai Iturriaga

Zure **ausardiaz** harritua balitz bezala, luzaz begiratzen zaitu: segundo bat edo bi beharbada. Ramuntxo Etxeberri

2 *iz* ausarkeria.

Nire injenuitatea eta nire **ausardia**! Joan Mari Irigoien

Aita harroa, zalantzarik gabe, nik faltan izan ditudan indarra, eskuzabaltasuna eta **ausardia** sobera baititu gure Jonek. Xabier Montoia

Hona hemen nora eraman ninduen ene **ausardiak**. Koldo Izagirre

3 ***ausardiaz*** *adlag* ezeren beldurrik gabe; ausarkeriaz.

Jainkoaren hitza **ausardiaz** predikatzen zuten. Elizen arteko biblia

Karia horretara zu ahalkerazirik libertitzen nintzelako, **ausardiaz** didazu sakrifikatu. Jon Muñoz

Han Mikel Strogoffen errebolberra hartu eta, **ausardiaz** hartzaren aldera hurreraturik, tiro egiten dio bertatik bertara. Karlos Zabala

Zer edo zer ikasi, eta **ausardiaz** bultzatzen zuten bizitzaren atea. Patxi Zubizarreta

-Lasterka egingo dugu -esan zion Harryk **ausardiaz** -, zuzenean oihanera, konforme? Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurre egiteko ausardia (6); **ausardia behar da** (10); **ausardia behar zen** (3); **ausardia da** (3); **ausardia duen** (3); **ausardia dute** (3); **ausardia duten** (4); **ausardia eman** (5); **ausardia ematen** (3); **ausardia erakustea** (3); **ausardia erakutsi** (6); **ausardia ere** (7); **ausardia eskatu die** (3); **ausardia eskatu zion** (3); **ausardia eskatzen** (5); **ausardia eskertu** (3); **ausardia ez** (11); **ausardia falta zaigu** (3); **ausardia faltaz** (3); **ausardia gora heltzeak** (3); **ausardia handia** (5); **ausardia handiz** (8); **ausardia hartu** (3); **ausardia hori** (5); **ausardia izan nuen** (3); **ausardia izan zuen** (8); **ausardia izanez gero** (3); **ausardia izango** (7); **ausardia izateko eskatu** (3); **ausardia kontua** (4); **ausardia osoz** (3); **ausardia politiko** (5); **ausardia politikoa eskatu** (10); **ausardia txalotzen** (3); **ausardia zuen** (3); **baina ausardia** (3); **baino ausardia** (4); **begiratzeko ausardia** (3); **bere ausardia** (11); **da ausardia** (4); **duten ausardia** (6); **egiteko ausardia izan** (4); **emateko ausardia** (4); **ematen duen ausardia** (3); **erakutsitako ausardia** (3); **ere ausardia** (6); **esateko ausardia** (7); **gehiegizko ausardia** (3); **halako ausardia** (3); **haren ausardia** (6); **horretarako ausardia** (3); **ibarretxek ausardia politikoa** (3); **jartzeko ausardia** (3); **joateko ausardia** (4); **kemena eta ausardia** (4); **nire ausardia** (7); **sartzeko ausardia izan** (4); **zait ausardia** (3); **zapaterori ausardia** (3); **zion ausardia** (3); **zuen ausardia** (6)

bere ausardiak (3)

ausardiaren domina (3)

ausardiari esker (5)

ausardiarik gabe (9); **ausardiarik izan** (12); **ausardiarik izango** (3); **egiteko ausardiarik ez** (3); **esateko ausardiarik** (3); **ez ausardiarik** (4)

ausardiaz aurre (4); **ausardiaz beterik** (3); **ausardiaz beteta** (4); **ausardiaz egin** (4); **ausardiaz joka** (3); **ausardiaz jokatzeko eskatu** (3); **ausardiaz jokatzen** (3); **duen ausardiaz** (3); **haren ausardiaz** (4)

---

ausarditsu *izond* ausardiaz betea; adorez betea. ik **ausart**.

Baina, Euskal Herriari dagokionez, 1970ko Abenduan burututako Burgosko Epaiketakoan hartutako jarrera garbi eta **ausarditsua**, garrantzitsua izan zen. Berria - Harian

Badiola ondarrutar **ausarditsua** baino lehenago inor ez baitzen menturatu, iskiluz lepo beterik zetorren kontrabando-ontzi "huts" eta fantasma hartara sartzen. Txillardegi

Baldin eta baleki Delabarre Ewing andrearen bitartekaritzaren alde eskatzea ez zatekeela -ezkutuki bazen ere- lotsagabekeria **ausarditsua**. Mirentxu Larrañaga

---

ausarkeria 1 *iz* behar den begirune edo lotsaz ari ez denaren jokaera, egite edo esana.

Hori dena ikusita, diot, orain arte filosofo moralek idatzi dutenak ez duela egia ezagutzeko balio izan, eta gustagarri izan dela ez espiritua argitzen zuelako baizik eta diskurtso eder eta lausengariz bermatzen zituztelako aurretik **ausarkeriaz** jasotako iritziak. Esteban Antxustegi

Mexikoko jatorrizko kultura sendotzen ari bazen laurehun urteko ilunaldiaren ondoren, **ausarkeria** litzateke uste izatea Ekialde Urruneko kulturak Mendebaldeak edo Errusiak bereganatua izan behar zuela. Iñaki Mendiguren

Jakiteagatik bakarrik, **ausarkeria** ez bada, esadazu, orain zu egiaz zaren bezala, nola ikusten duzun, adibidez, zeure burua urte batzuk lehenago. Josu Zabaleta

Emakumezkoetan, ostera, eta bere sasoi puntu hoberenean ez badaude ere, Williams ahizpak ez diren norbait azpimarratzea **ausarkeria** litzateke. Berria - Kirola

Eta zuekin elkartzen den jendilaje hori guztia... Eta ni haiek bezalakoa naizela pentsatzeko **ausarkeria** izan duzu! Jose Morales

Ongi begiratu al zuten galdetzeko **ausarkeria** izan nuen, zaila egiten baitzitzaidan besterik gabe desager zitekeenik sinestea. Ramon Saizarbitoria

John Caleren ibilbidea lau zertzeladatan laburbiltzea **ausarkeria** izan daiteke; beti egongo da kanpoan geldituko den disko, kontzertu edo kolaborazioren bat. Berria - Kultura

2 *iz* bere burua gehiegi arriskatzen duenaren jokaera edo egitea, gaitzesgarritzat hartua.

Zailtasunak erlatiboak dira, eta gainera, ez da nahastu behar ausardia eta are **ausarkeria** xedetzat duen ekintza bat, jokabide arruntaren ondorio denarekin. Iñaki Iñurrieta

Peppone besoak tolestuta egon zen **ausarkeria** miragarri hari begira. Koldo Biguri

Halako **ausarkeriaz** gain-estimatzen nuen neure indarra. Matías Múgica

Izan ere, **ausarkeria** zen geurea, lana egin ordez bizitza arriskatzen baikenuen, eta kemena hartzen kapital bakartzat. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ausarkeria hutsa** (3); **ausarkeria izan** (6)

---

ausarki 1 *adlag* ausardiaz.

Zabulonen leinuko berrogeita hamar mila gudari trebe, era guztietako armez eta, denek elkar harturik, **ausarki** borrokatzeko prest. Elizen arteko biblia

Izerdi patsetan zegoen, gizagaixoa, eta **ausarki** hurbildu nintzaion laguntza behar ote zuen galdetzera. Eduardo Matauko

Zure etsaiak urkatu egin du zure kapitain ausarta, denbora luzez, gaztelu erdi puxkatu batean, armada oso baten aurka **ausarki** burrukatu ondoren. Juan Martin Elexpuru

Bidea ixten zion gorpua alboratu, eta **ausarki** inguratu zen, gazteluko zilarrezko lurra zapalduz, ezkutua esekita zegoen hormaren aldera. Koro Navarro

Ez da sartzen **ausarki** naturaz goitiko gauzen munduan, Edgar Poe edo Hoffman bezala. Josu Zabaleta

Ausarki hartu zuen Cook andrearen mintza-tutua. Mirentxu Larrañaga

2 *adlag* ausarkeriaz.

Beraz, atseginez onartzen dut zure oharra eta, niri dagokidanez, baimena ematen diot Trigeziori bere ustez **ausarkiegi** egin dituen baieztapenak berraztertzeko. Imanol Unzurrunzaga

Bere oinarrian ezarritako premisak ezin ditu hain **ausarki** ontzat hartu, beharrezkoa ez balitz bezala sarri atzera begiratzea eta honi arreta eskaintzea. Ibon Uribarri

3 *adlag* ugari.

Leku handiagoa eta erreserbetako aberastasuna **ausarki** erabiliz, margo eta ilustrazio handi eta koloretsuek bizia emaiten diote pilota eta kirol guneei, euskal erakustokiaren berezitasuna baitira hainbat urtetan eskuratu erreserbak. Herria

Adibidez, zeri egin zaio barre **ausarkiago** Haurren Eskubideei baino? Xabier Olarra

Izanen da edateko tokia, **ausarki**. Berria - Kirola

Ilunpea zilar eta autoa setiatuz, euria **ausarki** ari zen. Itxaro Borda

Jokoberri eta trinket, lehen horrek du bildu **ausarkienik** jendea, bai joan den asteko bi partidetan eta bai, hain segur larunbat arats huntan jokatuko den finalean. Herria

4 ***ausarkian*** *adlag* ugari, ausarki.

Espainolak hor egina zuten harresi batean aterbetzen dira eta sekulako tirokatzea behar izan ginuen jasan, barne hortarik **ausarkian** balak eta grenadak igortzen zauzkigutela. Michel Oronoz

Bai, edateko eta jateko **ausarkian**, loteriako irabazdunak lorietan, eta partida eder baten ikusteko parada ukan dugu. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ausarki borrokatu** (3); **ausarki denentzat** (3); **ausarki hitz** (3); **ausarki jan** (3); **ere ausarki** (4); **hain ausarki** (3); **lana ausarki** (4); **ura ausarki** (4)

---

ausart 1 *izond/iz* arriskuen aurrean atzera egiten ez duena; ausardia adierazten duena.

Zu bai **ausarta**! Berri onak al dakarzkiguzu? Elizen arteko biblia

Denek dakigu aski **ausarta** behar dela aitzina jotzeko. Herria

Hitzetatik ekintzetara igaroz eta jokabide **ausartak** erakutsiz. Berria - Euskal Herria

Ez naiz **ausarta** izan mintzatzeko, zeren etxean aita kalakaria zen ainitz gauz bazazkin... amak ere bazazkin, bainan isilik egoiten zen. Menane Oxandabaratz

Besteak **ausartago** irudikatu ohi ditut, burua zut, kopeta gora, baina beharbada gure aita bezain izututa zeuden. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez herriko emakume **ausarten** zerrZergatik begirada hura **ausart** bihurtzen zen etsipenaren aurrean? endan hirugarren postua eskuratzeagatik. Arantxa Iturbe

Gaurko rokero amazuloak baino **ausartagoak** zirela esan daiteke, dudarik gabe. Pako Aristi

Mediokritatea gorroto duen emakume **ausart** eta urguiluz betea. Unai Iturriaga

Ertzainekin **ausart** jardun eta galdeketa kolpean eten izanak, lasaitu ordez, egonezin lauso batean hondoratu ninduen. Anjel Lertxundi

Esprintean derrigor izan behar duzu **ausarta**, bestela jai duzu. Berria - Kirola

Egiaz horma kontra zutik ez zegoen bitartean, arriskuari buruzko berriketak baizik ez ziren bitartean, **ausarta** mutila. Josu Zabaleta

2 *izond* ausarkeria adierazten duena.

Eskutitzetan Iñakik, gordinkeria **ausarta** batzuen artean, bere bizitzaren berri ematen zion. Gotzon Garate

Inon ziren bandolerorik, traidorerik eta gaizkilerik lotsagabeenaz eta **ausartenaz** inguratuak bizi ziren haiek, bazterretan nahi zituzten txikizioak eta belzkeriak eginez. Patziku Perurena

Benetan **ausarta** litzateke baieztapen hori egitea, zeren frantsesak, esaterako, eskuarki antzeko eraketa baitzerabilen. Isabel Arrigain

Hasteko, sei mila hizkuntza inguru ditugu lurrean, eta horiei buruz baieztapen generikoak egitea **ausarta** da, gutxieneko zerbait esatekotan. Pello Salaburu

Keinu **ausarta** da, pentsatzen du Davidek bere artean; baina zuhurra ote? Oskar Arana

3 ***ausart izan***

Joiadaren seme Benaias gizon kementsua zen eta egintza bikain asko egina. Kabtzeelgoa zen. Hark hil zituen lehoiak bezain **ausart ziren** bi moabdarrak. Eta elurra ari zuen batean, urtegira jaitsi eta lehoia hil zuen bertan. Elizen arteko biblia

Ruben, nire lehen-seme, nire indar, nire gizatasunaren lehen emaitza; zein **ausart zaren** eta indartsu! Elizen arteko biblia

Honen berri jakin zuenean, Frantziskok, buruarin eta arras **ausart zenak**, espedizioan parte hartzeko tratua egin zuen harekin: ez zen hura bezain noblea jatorriz, baina txiki uzten zuen bihotz handitasunean, eta, ondasunetan behartsuago bazen ere, eskuzabaltasunean aberatsago zen. Askoren artean

4 *zuhurtziagabetasun ausartegi* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Zuhurtziagabetasun ausartegia egotzi zien seiri, eta lesio faltak bosti. ETC-prentsa

a) Larrialdietan doloz edo **zuhurtziagabetasun ausartegiaz** jokatzea, horren ondorioz, pertsonei edo ondasunei kalte larriak eragiten bazaizkie. ETC-zientzia, zuzenbidea

Auzitegiak ez zuen gizahilketa eta **zuhurtziagabetasun ausartegirekin** sortutako lesioak egiaztatzen zituen frogak ikusi eta absolbitu zuen. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ausart agertu (5); **ausart ari** (3); **ausart aritu** (4); **ausart bat** (20); **ausart batek** (8); **ausart baten** (5); **ausart bezain** (4); **ausart esan** (3); **ausart eta lotsagabe** (4); **ausart gaitezen** (3); **ausart hadi** (3); **ausart haiek** (3); **ausart haren** (4); **ausart hark** (4); **ausart hori** (8); **ausart horiek** (5); **ausart horrek** (4); **ausart horri** (4); **ausart hura** (6); **ausart jokatu zuen** (7); **ausart jokatuta** (3); **ausart jokatzea** (5); **ausart jokatzeko** (3); **ausart mintzatu** (3); **ausart records** (3); **ausart samarra** (3); **ausart zaitez** (3); **baina ausart** (4); **bezain ausart** (5); **emakume ausart** (4); **gizon ausart** (9); **hain ausart** (7); **jauzi ausart** (3); **mila gudari ausart** (4); **oso ausart** (5); **sobera ausart** (3); **talde ausart** (3); **zaldun ausart** (3)

adoretsua eta ausarta (3); **apustu ausarta** (3); **ausarta dela** (7); **ausarta duk** (3); **ausarta egin zuen** (3); **ausarta ere** (3); **ausarta eta gaztea** (3); **ausarta eta trebea** (3); **ausarta haiz** (3); **ausarta izan behar** (6); **ausarta izan da** (11); **ausarta izan zela** (3); **ausarta izan zen** (6); **ausarta izateko eskatu** (3); **ausarta zara** (6); **ausarta zarela** (3); **ausarta zela** (8); **berritzaile eta ausarta** (3); **bezain ausarta** (11); **bihotz ausarta** (3); **da ausarta** (3); **edo ausarta** (3); **ekintza ausarta** (3); **erabaki ausarta** (5); **gerlari ausarta** (3); **gizon ausarta zen** (4); **gudari ausarta** (3); **hain ausarta** (4); **jarrera ausarta** (3); **lan ausarta** (4); **liburu ausarta** (3); **mutil ausarta** (4); **oso ausarta da** (3); **oso ausarta izan** (3); **pauso ausarta** (3); **politika ausarta** (3); **talde ausarta** (3); **zein ausarta** (3)

ausartago ari (4); **ausartago jokatu behar** (3); **baino ausartago** (11); **gero eta ausartago** (11); **geroz eta ausartago** (3)

ausartagoa izan behar (6); **ausartagoa zara** (3); **baino ausartagoa** (7)

ausartagoak izan (4); **baino ausartagoak** (3)

ausartak behar dira (3); **ausartak dira** (7); **ausartak direla** (4); **ausartak egin** (4); **ausartak hartu** (5); **ausartak zirela** (3); **ausartak ziren** (9); **erabaki ausartak** (3); **gazte ausartak** (3); **gizon ausartak** (4); **gudari ausartak** (7); **indartsu eta ausartak** (4); **jokabide ausartak** (3); **neurri ausartak** (7); **oso ausartak** (4); **proposamen ausartak** (3); **soldadu ausartak** (4); **urrats ausartak** (6)

ausartenak ere (5)

---

ausartagotu, ausartago(tu), ausartagotzen du *ad* are ausartago bihurtu.

Guztiarekin, elkarrizketa konfiantza giroan garatu izanak **ausartagotu** egin zuen. Patxi Zubizarreta

Neska gisa hartan ikusi zuelarik, **ausartagotuz** eta ahotsa goratuz. Patxi Zubizarreta

---

ausartasun *iz* ausardia; ausarta denaren nolakotasuna.

Beti aitzina egin du Baionako Antzerki Festibalak, urtetik urtera berritasun asko eskainiz eta **ausartasun** bidea jorratuz. Herria

Horretarako, ETAk, Euskal Herriaren singulartasunean kokatua, unibertsal berri bat proposatzeko **ausartasun** ezin sinetsizkoa izan zuen. Joseba Zulaika

Suizidioa! horra indarrik gehiago ez dutenen indarra, horra sinesterik gehiago ez dutenen esperantza, horra azpiratuen **ausartasun** gain-gainekoa! Josu Zabaleta

---

ausartatu, ausartat(u), ausartatzen da *ad* norbait, ezerk atzera eragiten ez diola, zerbait egiteko gauza izan. ik**ausartu**.

Erreposki erreposki ateratzera **ausartatzen** da, eta noizbait egun guzietako harat honatetan parte hartzen du. Michel Oronoz

Surf lerra-jokoan trebe diren bi gazte **ausartatu** dira halere bidexka horietarik batean gaindi, bere autorat heltzeko aise hurbilago zutela. Herria

Azkenean, nolazpait **ausartatu** nintzen solasaren ematerat. Janbattitt Dirassar

Mutiko gazte bat, Raimundo delakoa, ordu arte ez ezaguna, **ausartatu** zen haien balakatzera eta, bizia salbatu ziolakotz horrela, printzesak eskerrak eman ondoan, hasi ziren biak amodiozko solasetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

ausartgo *iz* ausardia, ausartasun.

"Andrea, zeren ni zure ezagun gabea bezala naizelarik,Testamentu berriaren euskarazko tanslatione honen zure Maiestateari dedikatzera ausartu izan naizen, merezi onez arintasunez akusa ahal neinde, baldin neure **ausartgoa** honez zerbait eskusa bederen eman ez baneza", halaxe ziren haren lehenengo berbak. Edorta Jimenez

---

ausarti *izond/iz* arriskuen aurrean atzera egiten ez duena; ausardia adierazten duena. ik**ausart**.

Begiratzen zuelarik, mesfisdakor, ahuntzaren hankaren edo akerraren adarraren seinalerik ote zegoen astapotro **ausarti** eta, orain, garaitu harengan. Jon Alonso

Lasaia eta otzana izandakoa urduri itzuli zen, presatua, **ausarti** eta berritsua. Bego Montorio

Gaiztoa **ausarti** agertzen da; zintzoak bere jokabidea sendotzen du. Elizen arteko biblia

---

ausartu, ausart(u), ausartzen da *ad* norbait, ezerk atzera eragiten ez diola, zerbait egiteko gauza izan.

Tourvel andrea zer nolako moldez irudikatzera **ausartzen** zaren! Jon Muñoz

-Herria ez da **ausartuko** Sinai mendira igotzera, zuk zeuk ohartarazi baitiguzu eta agindu mendiari mugak ezartzeko eta sakratutzat hartzeko. Elizen arteko biblia

Ez nintzen **ausartu** ez baietz ez ezetz esaten; besterik gabe, besaburuak altxatu nituen. Ramon Saizarbitoria

Indartsuarekin ez gara **ausartzen**. Gotzon Garate

Ez da, hala ere, **ausartu** nire buru-gainekoaz gaizki-esaka hastera. Xabier Olarra

-Hemen nehor egiten **ausartzen** ez dena egiten duzu zuk. Koldo Izagirre

Gurasoei eta aitatxi Erramuni egia aitortzen ez naiz **ausartu**. Txillardegi

Bazenekien ni ez nintzela **ausartuko** hitz bakar bat ere esatera itzulitako diruaz. Xabier Olarra

Idazle urduri eta iheskorra, eta hala ere edozer izendatzera **ausartzen** zena, huraxe zen gure maisua. Joseba Zulaika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aipatzen ausartu (3); **aitortzera ausartu** (3); **altxatzera ausartu** (4); **argitaratzera ausartu** (3)

ausartu aurretik (3); **ausartu baitzen** (3); **ausartu barik** (5); **ausartu behar** (6); **ausartu delako** (3); **ausartu den** (6); **ausartu dena** (3); **ausartu dira** (9); **ausartu diren** (7); **ausartu direnak** (3); **ausartu egin nintzen** (3); **ausartu egin zen** (5); **ausartu egiten** (3); **ausartu ere egin** (3); **ausartu ere egiten** (4); **ausartu ere ez** (6); **ausartu esatera** (3); **ausartu ez diren** (3); **ausartu ez nintzen** (3); **ausartu ez zen** (3); **ausartu ez ziren** (3); **ausartu ezer** (3); **ausartu gara** (3); **ausartu gehiago** (4); **ausartu ginen** (3); **ausartu hari ezer** (3); **ausartu izan balitz** (4); **ausartu izana** (3); **ausartu naiz** (19); **ausartu nintzaion** (8); **ausartu nintzen esaten** (4); **ausartu zen bakarra** (4); **ausartu zen galdetzera** (3); **ausartu zen mikel** (4); **ausartu zenean** (3); **ausartu zenik ere** (3); **ausartu zinen** (3); **ausartu zirenak** (3); **ausartu zitzaion** (8)

azkenean ausartu (5); **baina ausartu** (3); **bakarrik ausartu ziren** (4); **batean ausartu** (3); **batekin ausartu** (4); **begiratzen ausartu** (3); **begiratzera ausartu** (10); **botatzen**

ausartu (3); **deitzera ausartu** (5); **egiten ausartu ez** (5); **egiten ausartu gabe** (3); **egiten ausartu zen** (3); **egitera ausartu gabe** (3); **egitera ausartu zen** (10); **ematen ausartu zen** (3); **ematera ausartu** (6); **erantzutera ausartu** (3); **ere ausartu da** (5); **ere ausartu gabe** (6); **ere ausartu zen** (9); **esaten ausartu gabe** (3); **esatera ausartu ez** (4); **esatera ausartu gabe** (3); **eskatzera ausartu** (7); **ez ausartu gero** (3); **ez baitzen ausartu** (3); **ez bitez ausartu** (3); **ez da ausartu** (18); **ez dira ausartu** (5); **ez ginen ausartu** (5); **ez naiz ausartu** (19); **ez ninduan ausartu** (4); **ez nintzen ausartu** (45); **ez zara ausartu** (6); **ez zen ausartu** (79); **ez ziren ausartu** (14); **ezer esatera ausartu** (7); **ezertara ausartu** (3); **ezetz ausartu** (5); **galdera egitera ausartu** (4); **galdetzen ausartu** (8); **gutxi ausartu** (5); **hartzen ausartu** (3); **hartzera ausartu** (6); **hitz egitera ausartu** (4); **hurbiltzen ausartu** (4); **hurbiltzera ausartu** (4); **idaztera ausartu** (7); **inor ausartu** (3); **irteten ausartu** (3); **joaten ausartu** (3); **joatera ausartu** (3); **jotzera ausartu** (3); **nintzen galdetzera ausartu** (3); **nola ausartu zara** (8); **nolatan ausartu zara** (5); **norbait ausartu** (3); **sartzen ausartu** (7); **sartzera ausartu gabe** (3); **sekula ausartu** (7); **ukitzera ausartu** (4); **zabaltzera ausartu** (3); **zen ausartu bere** (3); **zen galdetzera ausartu** (4)

aipatzera ausartuko (3); **aitortzera ausartuko** (3); **ausartuko al da** (5); **ausartuko al haiz** (3); **ausartuko al zarete** (3); **ausartuko balitz** (7); **ausartuko banintz** (8); **ausartuko bere** (4); **ausartuko den** (3); **ausartuko denik** (4); **ausartuko dira** (3); **ausartuko direnik** (3); **ausartuko ez balitz** (6); **ausartuko ez liratekeen** (4); **ausartuko ez zena** (3); **ausartuko hori** (3); **ausartuko naiz** (19); **ausartuko nintzateke esatera** (3); **ausartuko ote zen** (4); **ausartuko zenik** (6); **ausartuko zinateke** (3); **baina ausartuko** (5); **baina nor ausartuko** (3); **dela esatera ausartuko** (4); **egiten ausartuko** (8); **egitera ausartuko** (8); **ere ausartuko** (13); **esaten ausartuko** (6); **esatera ausartuko ez** (4); **esatera ausartuko nintzateke** (10); **ez da ausartuko** (8); **ez dira ausartuko** (5); **ez litzateke ausartuko** (4); **ez naiz ausartuko** (5); **ez nintzateke ausartuko** (7); **ez zela ausartuko** (4); **ez zen ausartuko** (10); **hartzera ausartuko** (3); **horretara ausartuko** (4); **inor ausartuko** (3); **nola ausartuko da** (3); **nor ausartuko da** (13); **nor ausartuko litzateke** (3); **nor ausartuko zen** (4)

ausartuz gero (8)

ausartzea da (3); **ausartzea ere** (3); **egitera ausartzea** (5); **ez ausartzea** (8)

begiratzera ausartzeke (3)

ez ausartzeko (4)

ateratzera ausartzen (3); **aurre egitera ausartzen** (3); **ausartzen al zara** (4); **ausartzen bada** (8); **ausartzen baita** (4); **ausartzen banaiz** (4); **ausartzen bazara** (7); **ausartzen begiak** (3); **ausartzen da** (20); **ausartzen dena** (5); **ausartzen denak** (4); **ausartzen denik** (4); **ausartzen diren** (4); **ausartzen direnak** (6); **ausartzen ere** (3); **ausartzen esatera** (5); **ausartzen ez badira** (3); **ausartzen ez den** (11); **ausartzen ez dena** (3); **ausartzen ez diren** (6); **ausartzen ez zela** (3); **ausartzen ez zen** (8); **ausartzen gara** (6); **ausartzen gure** (3); **ausartzen haren** (3); **ausartzen hitz** (3); **ausartzen hori** (3); **ausartzen jaunaren** (3); **ausartzen naiz** (20); **ausartzen nintzen** (4); **ausartzen nire** (3); **ausartzen zarete** (3); **ausartzen ziren** (10); **ausartzen zirenak** (3); **begiratzen ausartzen** (3); **begiratzera ausartzen** (4); **ea ausartzen** (3); **egiten ausartzen ez** (3); **egitera ausartzen den** (4); **egitera ausartzen ez** (3); **ematera ausartzen** (7); **erantzutera ausartzen** (3); **ere ausartzen ez** (4); **esaten ausartzen ez** (6); **esatera ausartzen dira** (3); **esatera ausartzen ez** (5); **eskatzera ausartzen** (3); **ez bainintzen ausartzen** (3); **ez baitzen ausartzen** (5); **ez da ausartzen** (30); **ez dira ausartzen** (11); **ez gara ausartzen** (7); **ez naiz ausartzen** (47); **ez nintzen ausartzen** (36); **ez zarete ausartzen** (3); **ez zela ausartzen** (6); **ez zen ausartzen** (78); **ez ziren ausartzen** (21); **ezer esatera ausartzen** (5); **galdetzera ausartzen** (5); **gutxi ausartzen dira** (3); **hartzera ausartzen** (3); **hitz egiten ausartzen** (3); **hitz egitera ausartzen** (5); **horretara ausartzen** (3); **inor ausartzen ez** (3); **irtetera ausartzen** (3); **itzultzera ausartzen** (3); **kontatzera ausartzen** (3); **mintzatzera ausartzen** (5); **naiz ausartzen ezer** (3); **nola ausartzen haiz** (4); **nola ausartzen zara** (10); **nola ausartzen zen** (3); **nolatan ausartzen** (3); **nor ausartzen** (4); **ozta ozta ausartzen** (3); **sartzen ausartzen** (4); **zen ausartzen bere** (4); **zen ausartzen hari** (3); **zen inor ausartzen** (6); **zen mugitzera ausartzen** (3)

---

ausartze *iz* norbait, ezerk atzera eragiten ez diola, zerbait egiteko gauza izatea.

Bakarka aurkeztera ez **ausartzea** leporatu berri diezu. Berria - Euskal Herria

-Zure seme-alabak aipatzera **ausartzea** ere! Patxi Zubizarreta

Inork gehiago nahi edo behar izanez gero, libre zuen Ihuriko ertzetaraino **ausartzea**. Aingeru Epaltza

Harrigarria da ikustea nola den posible bat **ausartzea** halako tresna txiki batean lurretik kanpora joaten. Pello Salaburu

Txapelketan hori egiten **ausartzea** egundoko pausoa da. Berria - Harian

-Azkenean, **ausartzea** da kontua. Iñaki Iñurrieta

Beraz, minaren beldurrez maitasunarekin ez **ausartzea** koldarkeria bat iruditzen zait! Pako Aristi

---

ausartzia *iz* ausardia, ausartasuna.

Beldurrik gabe, **ausartziaz** beterik, aitzinetik jakinez gehiengo zabala etsai jarria zitzaiola, hala ere lotsa gabe aitzina jo du Ibarretxek. Herria

Ausartzia osoz, han nizkioan, susmoek atzenarazirik manerak, zigiluak hautsi haien errege-mandatuari. Juan Garzia

Eta **ausartziak** bultzatu zuen gogoan iragan zitzaionaren paperean ezartzera. Daniel Landart

Baina guztiarekin ere, neure obligazio handiek, ondasun errezibituek, eta betiere, ene alderakotzat, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ez didate uzten, ondotik bederen, kanporat ateratzeko, **ausartziarekin** batera. Pello Salaburu

Nihaurk ongi eta lasai lo egiteko ditudan baliabideak ez dizkiet lankideei aipatzen ahal: **ausartzia** eskasa eta ahalkea nabaritzen dut. Itxaro Borda

Bat-batean, ez dakit nola, gaitzeko **ausartziak** hartu ninduen. Janbattitt Dirassar

Orduan, neskato hutsa zen; haren **ausartziak** irri eginarazi zion, eta haria usaian baino gehiago pagatu zion. Elena Touyarou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ausartzia handia (3); **ausartzia hori** (4)

---

ausaz 1 *adlag* beharbada, agian, apika.

Ausaz bide osoa egin ondoren berriz aurkituko dugu elkar. Jon Muñoz

Gauzak, ordea, aldatu egin ziren franko atsedenaldi luzeak iraun zuen tartean, eta ez, **ausaz**, gure onerako. Karlos Linazasoro

Ezbeharren batek finkatu behar ote du, **ausaz**, gu bion arteko komunikazioa? Pako Aristi

Ausaz gin-tonik sailaren eraginez, neure burua zehatzeari ekin nion: menpeko nuen haur babesgabe horrekin fitexko joan nahi eta horra ondorioa! Aingeru Epaltza

Baina ez al zen **ausaz** alaia goiz hura? Juan Garzia

Non edo non, ametsetan **ausaz**, adituko zuen izena. Matías Mujika

Sabelandi horrek borroka egiteko asmoa du, **ausaz**? Josu Zabaleta

Setakeria gisako bat zen **ausaz**, setakeria motetan azkena, bakarra. Urtzi Urrutikoetxea

Uste ote zuen, **ausaz**, xehetasunei buruzko jakin-minean eta zaletasunean kide dituela gaixo guztiak? Xabier Olarra

Isilik zoazte, kamioiaren kulunkak lokarraraziak **ausaz**, batere gozoa ez izanagatik. Xabier Montoia

Inoiz arkeologoek topa ahal izan ditzaten estaliko zituzten, edo haiek ere suntsituak izan ziren, **ausaz**, zortzi dorreakaz batera. Koldo Izagirre

2 *adlag* modu aleatorioan.

Hautemapenek **ausaz** baino ez dute egiten bat esperientzian, halako moldez, non ez baitakarte beren arteko elkarloturaren beharrik aldean. Ibon Uribarri

Supermerkatu edo postetxe bateko errenkan itxura antipatiko eta zakarreko hirurogei urte inguruko edozein emakume **ausaz** aukeratuz, eta emakume horrek nire sexua objektu ezezagun batez arakatu behar duela imajinatuz soilik hurbil naiteke laburki astebetez murgilduta egon nintzen egoerara. Joseba Urteaga

Liburua ireki dut, **ausaz**: ama-alabak Eugénierengan sortzen ari den maitasunez ari dira hizketan. Monika Etxebarria

Kanpuseko jantokira hilabetean behin joaten naiz, asko jota, eta gehienetan lagunarekin; beraz, ez dut liburuak **ausaz** erosteko inolako premiarik sentitzen. Iban Zaldua

Horrela irakurtzen gelditzen zen, **ausaz** bezala, hirurak arte. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ausaz bezala (3); **ausaz ere** (4); **ausaz ez** (3); **ez da ausaz** (3)

---

ausazko 1 *izond* zorizkoa, zoriari dagokiona. ik **mentura 12**; **aleatorio**.

Asmo praktiko hau edo trebetasunarena edo etikotasunarena da, lehena, **ausazko** eta beharbadako helburuetarako, bigarrena, berriz, behar-beharrezkoetarako. Ibon Uribarri

Eta, hala ere, zerbaitek huts egingo du, **ausazko** aldagaiak saihestezinak direlako. Berria - Harian

Asturuek, bestalde, beren **ausazko** lana egin zuten. Edorta Jimenez

Idoia txepetxaren hegaldia baino **ausazkoagoa** zela pentsatu nuen, noiznahi ezustean harrapatzen ninduela. Juan Kruz Igerabide

Aurrekariaren aurkikuntzak legezko auzia **ausazko** esperientziaren estatus apaletik epai moldagarriaren maila nobleraino igoarazi zuen. Xabier Olarra

2 ***ausazko atzipen*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Honi buruz egindako azterketa baten, **ausazko atzipen** erabilpenean, 2 klaseko txartel batzuk 1,38& MB/s-ko abiadura lortu zuten, probatutako 6 klaseko txartel guztiek, fabrikaitzaile handien txartelak barne, 100 aldiz motelagoak izan zirelarik. ETC-entziklopedia

Disko bat **ausazko atzipena** duen gailu helbideragarri bat da. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 ***ausazko atzipeneko fitxategi*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ausazko atzipeneko fitxategia : Bigarren mailako memorian gordetako fitxategi mota, erregistroak zuzenean atzitzeko bidea ematen duena, atzipen-denbora erregistroak fitxategian daukan posiziotik independentea izanik. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

ausazkotasun *(corpusean ez dago; ETCn **84** agerraldi) iz* ausazkoa izatearen nolakotasuna. ik **aleatoriotasun**.

Beraz, erlazio horretan banakotasunaren axolagabetasunik eta horren **ausazkotasun** etikorik ez dago. ETC-literatura, saiakera

Arauen eta taktiken errepertorio bat baduten arren, erabakiak hartzeko prozeduran **ausazkotasun** txiki bat ere txertatuta dute. ETC-literatura, saiakera

Beste zailtasun bat, kontraste harrigarri hori da: batetik prozesuak hain emaitza antolatu eta konplexuak izatea -gure inguruan ikusten ditugun organismo bizidun horiek guztiak- eta bestetik horren bihotzean datzan **ausazkotasuna**. ETC-literatura, saiakera

Eta ezin dugu sinetsi bat-bateko harmonia bat **ausazkotasunaren** ondorio soila denik. ETC-literatura, saiakera

Orain arte egindako **ausazkotasun** test estatistiko guztiak gainditu dituzte pi zenbakiaren hamartar sekuentziek. ETC-prentsa

Hamabost bat minutuko iraupenarekin, patroi berbera errepikatzen du beti, eta obra itxi baten aurrean egonik **ausazkotasunak** azken emaitza asko aldatuko lukeen galdetzera garamatza. ETC-prentsa

Oraindik ongi badakit **ausazkotasunak** ez duela inoiz aberastasuna banatu. ETC-prentsa

Ausazkotasuna da istorioan agertzen den beste gaietako bat. ETC-prentsa

Azkenaldian beste errepresio forma psikologiko latz bat areagotu da: **ausazkotasuna**, justizia erruleta errusiarra bihurtu baita. ETC-prentsa

Erabilera bakarreko blok-zifra baten segurtasuna gakoaren **ausazkotasunari** zor zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oro har, edozein kultura kaosaren aurrean geure burua defendatzeko eraikuntza edo babesleku bat da, **ausazkotasunaren** kolpeen eragina moteltzeko diseinatua, inguruneari eta premiei egokitua (hegaztien lumak edo ugaztunen larruazala bezalatsu). ETC-zientzia, zuzenbidea

Nahiz eta zordunak bere betebeharra beteko duen edo ez duen ziurgabetasuna egon, ez du esan nahi **ausazkotasunaren** mendean dagoenik, ez dutelako eraginik kontratuaren abantaila eta desabantailen gain, baldintza bati soilik dago lotua. ETC-entziklopedia

Egituraren **ausazkotasuna** tenperatura-tarte handi batean erantzun paramagnetiko garbia erakusten duten metal askori ere aplikatzen zaie. ETC-entziklopedia

---

ausente *(ETCn **134** agerraldi; orobat **absente** ETCn **311** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **absente** agertzen da) izond/iz* pertsonez edo gauzez mintzatuz, egon behar lukeen tokian ez dagoena. ik **absente**.

Ezkerralderantz nago etzanda, gorputzaren pisua bihotzaren gainean, lagunaren bizkar **ausenteari** bizkarra emanda, begirada ilunpean galduta. Joseba Sarrionandia

Aita **ausentearen** partez, Balantsunen bost ondokoek lau aita kanoniko zeuzkaten: ez ziren galduko. Itxaro Borda

Eta Estatu demokratiko batean, non, nahi izanez gero, guztiak presente egon daitezkeen legeak ezartzen direnean, **ausenteek** sinetsi egin behar diete presenteei. Esteban Antxustegi

Printzesa **ausentea** zirudin -pentsatu zuen berriro disimuluz begiratzen ziola izkinako ontzitegitik edalontzi batzuk ateratzen ari zen bitartean. Joxemari Iturralde

---

ausentzia *(ETCn **358** agerraldi; orobat **absentzia** ETCn **828** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **absentzia** agertzen da) iz* ez egotea, ez izatea; norbait edo zerbait ez dagoen denbora. ik **absentzia**.

Baina neure **ausentziak** oinazeak gehituko dizkidan bitartean, neure kexuak nori adieraz diezazkioket zuri ez bada? Jon Muñoz

Eta nik ere errezatu nahi izan nuen: ordea, aitagurea xuxurlatzen hasi orduko, **ausentzia** eta gabezia oso batek inguratu ninduen, akometatu ninduen, atrapatu ninduen. Joan Mari Irigoien

Ez zen guti ironikoa izanen, sekulan soldadu talde bat topaturik, bere **ausentziaren** zergatia eta kontrabandista famatu baten konpainian aurkitzea esplikatu beharrean gertatuko balitz. Elena Touyarou

Barneko tristura handia neukan: gasnaren **ausentziak** antsia hazten zidan, bakardadea areagotzen, abandonu irudipena biderkatzen. Itxaro Borda

Mende eta **ausentzia** zatiak kristalduz pilatuko ziren eta, denborak bere beiragintzan kristal lodi bat jarri du gure artean. Joseba Sarrionandia

Bere ikuskatzaile lana ahaztu zitzaion, hango lekuak miatzen gelditu zen zortziak arte, bere **ausentziak** arrainaren pabiloia asaldatuko zuela burutik pasatu ere egin gabe. Karlos Zabala

Maiz egiten ditu halakoak, baina gaur urduriago jarri nau Aliziaren **ausentziak**. Iban Zaldua

Andrésen agurrak eta jende beltzaranaren jantziek eta Luisen **ausentziak** eta bart gaueko ardo eta tabakoaren zaratek uxatzen dizute esaldiak asmatzeko ahalmena. Lourdes Oñederra

Eta **ausentziek** presentziek baino leku handiagoa betetzen dute. Eider Rodriguez

Emakumea, lehenengo atalean, **ausentzia** da, mina. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ausentziak ez** (3); **nire ausentziak** (3)
> **nire ausentziaz** (4)

---

ausiabar *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* **1** *iz* kezka, buruhaustea.

Ausiabarra idazlearen buruan zegoela esan ohi zuen Margeriek. ETC-literatura, saiakera

Berehala hartu du **ausiabarrak**. ETC-literatura, saiakera

2 *iz* suntsipena, nahasmena, hondamendia.

Ez dakit zergatik pizten duten beltzek horrelako **ausiabarra** ilearen inguruan. ETC-literatura, saiakera

Erraz ulertzen da orain gogorik batere ez bazuen Espartaren aliatu bihurtzeko, batez ere buruzagi espartarren esanetara jartzeko, **ausiabarraren** ostean geratu zitzaizkion bere gudamutilen hondarrak. ETC-literatura, saiakera

---

ausiabartza *iz* suntsipena, hondamendia.

Hala, hark lur jotzean, eranskin koxkor, luzagarri pitin bakoitza atzetik doa **ausiabartzan**. Juan Garzia

Nekeon buruan, behin pilda gori guztiak itzalirik, hantxe zutik segitu nuen minutu batzuez, soraio, lelotu antza, belaunak dardaraz, ikusi gabe so eginez **ausiabartzaren** aztarnei. Juan Garzia

Ausiabartza horretan, esaneko izanez irekitzen den gizakia, egintza jainkozkoekin harbera dena, gorago igotzen da pentsa daitekeena baino. Joan Mari Lekuona

---

ausik (onomatopeia) ausikitzean egiten den hotsa.

Honi **ausik** eta horri hurrup hastandu nuen, bederen, hitzordua hitzartu izanaz bereganatu gogo ninduen damuaren itzala. Aingeru Epaltza

---

ausika ik **ausikika**.

---

ausikari ik **ausikitzaile**.

---

ausiki[1], ausiki, ausikitzen **1** du *ad* hozka egin, hozkatu.

Baldwin, idazmahaian eserita, arkatz baten puntari **ausikitzen** ari zen. Lopez de Arana

Domengak ezpainak **ausikitzen** zituen eta Graxik hats bahitua zirudien. Elena Touyarou

Beldurrak hartuta izara **ausikitzen** zuenetz, damu gabeko malkotan urtu zenetz edo burua mantapean ezkutatzen zuenetz, ez genuen jakin. Koldo Izagirre

Diogenesek txakurrek bezala **ausikitzen** zuen, baina Krates txakurrak bezala bizi zen. Juan Garzia

Honoré azaltzen zitzaidan gainean ahoa irekirik, musu eman nahi izango balit bezala, hurrena nire haragia basaki **ausikitzeko**. Joxan Elosegi

2 du *ad* ziztatu.

Sabeleko mina ematen zion, sudurra ixten zion, kilimak jartzen zizkion burezurrean, garuna ausikitzen zion, Titori **ausiki** zioten eltxoek bezala. Koro Navarro

3 irud/hed

Mundu mugitu honen uhainen erdian, uharte bat, itsasoak **ausikitzen** ez duen lehor segurua iduriz. Piarres Aintziart

Inortxok ere ez zuen bere sekretuaren berri, baina Raduan Husainik aholkua eman ziolarik, asaskatzekotan egon zen barrena **ausikitzen** ziona. Patxi Zubizarreta

Gogor **ausikitzen** dik haizeak; hotz ere hotz duk. aina azken finean, horiek ere beren buztana **ausikitzen** ari dira. Juan Garzia

---

ausiki[2] **1** *iz* hozkada.

Platera ezartzen entzun zuen, gero, hortzik gabeko aho baten **ausikia** aditu zuen, bai eta aldizka emakumeak kafe kikarari ematen zizkion zurrutada-hotsak ere. Lopez de Arana

Eta horretarako munduko zapaldu guztien elkartasunak ezin emon ziezadakeen arrazoi intimo bat behar nuen nik ere, arratoiaren **ausikia** adorez hartzeko. Koldo Izagirre

Iduri luke etxeko herensugeak zirela, zaunkarako edo **ausikirako** prest. Koldo Izagirre

2 *iz* ziztatzea, zizta. ik **ziztada**.

Ausikia ezkerreko bularrean zeukan. Joxe Austin Arrieta

3 irud/hed

Egia da funtsean bankoek **ausikiño** bat eginen dutela, bainan biziki **ausiki** ttipia omen. Herria

Eta denek begi arranpaloekin ikusi zuten sendagile judua, kontzientziaren **ausikiek** bakean utzi ez, eta bere errunduntasuna jendaurrean agertu beharra izan zuena. Patxi Zubizarreta

Larriaren **ausiki** ezaguna. Iñaki Iñurrieta

4 ***ausiki egin*** **1** hozka egin, hozkatu.

Artaldeari, halako batean, oldartu, bizpahiru ardiri **ausiki egin**, eta artaldeko ardi gehienak hil zirela hurrengo egunetan, eta hala iritsi zela izurria Urbiain ingururat, Lutheroren kulpagatik. Joan Mari Irigoien

Ezpainei **ausiki egin** zien eta hoztasunez begiratzen saiatu zen, hitzik egin gabe. Lopez de Arana

-Bederatzi hildako egozten zizkidatek, zintzurrean **ausiki eginez** itota. Koldo Izagirre

Puru-zuztarrari **ausiki egin** dio ondoren. Harkaitz Cano

Hatz luze eta finak ahoan hartu eta **ausiki egin** nahi ziela zirudien. Ibon Uribarri

2 *irud/hed* Hozkirriak **ausiki egin** dio beso motzetan. Aingeru Epaltza

Bere sentiberatasunari, bihotzari **ausiki egiten** dion harra sekula ez da aldenduko bere barnetik. Filipe Bidart

---

ausikika **1** *adlag* ausiki eginez.

Maikak Txoko besarkatu zuen, ezpainetan **ausikika**. Itxaro Borda

Pentsa liteke ezen, goseak estutu balitu, elkarren aurka borrokatuko zirela **ausikika**. Juan Garzia

Elkarri **ausikika** bezala, iduri elkar jan behar! Janbattitt Dirassar

2 irud/hed

Monique 24 urtetan urrundu zira gure artetik bizitza sano bati **ausikika** lotu orduko. Herria

Ahozpez jarri zen, lotsaz amorratuta eta burukoari **ausikika**. Lopez de Arana

Malkotan itsaso eta eleei **ausikika** ari zen. Itxaro Borda

Handik aitzina, kontzientziaren harra **ausikika** hasten zitzaidanean, otoitz hura egin, eta otoitz hartan hartzen nuen bertzela nekez hartzen nuèn sosegu eta kontentamendu apurra. Joan Mari Irigoien

Alabaina, amore eman beharrean, zalantza **ausikika** hasten zitzaion aldiro, bere zoriona defendatzeari ekiten zion. Patxi Zubizarreta

---

ausikilari *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) iz* ausikitzen duena. ik **hozkalari**.

Inoiz ez zen bizi izan horren obsesio **ausikilariarekin** : gauero egiten zuen amets benetan Vera Candidarekin. ETC-literatura, saiakera

Dortoka **ausikilariak** ez dira izaten hain haundiak. ETC-literatura, saiakera

Dortoka **ausikilaria** : dortoka muskerra izenaz ere ezaguna da. Ur ugari dagoen eremuetan bizi ohi da. 40-50cm inguruko luzera du. Gauez elikatzen da eta haragijalea

da. ETC-entziklopedia

---

ausikitzaile 1 *izond* ausikitzen duena.

Bizirik daude, geldi-geldi, norbaitek ukitzen dituen arte, beren sugandila-ahoak lasto-hariz ongi estekatuak, oso **ausikitzaileak** omen baitira: haien haragiak, egositakoan, oilaskoaren zaporea omen. Joxe Austin Arrieta

---

auska *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)* 1 *iz* borroka.

Edozelan be, honek seguruenik ez dauka zerikusirik zuk zeuk aspaldi ezagutu zenduazan txakur **auskekin**. ETC-literatura, saiakera

Boxeo iragarkiek Yvonneren eta Kontsularen arteko **auska** irudikatzen dute. ETC-literatura, saiakera

Eguneroko **auska** bat da... ETC-prentsa

2 *auskan adlag* borrokan. *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

Afrikarra da gizaki bat jaiotzen denetik hiltzen denera frontean egon ohi dena, bere kontinenteko natura bereziki gaiztoaren kontra **auskan**, eta bizirik egotea, biziari eusten jakite hutsa da haren garaipenik handiena. ETC-literatura, saiakera

Ordea, askatu eta Marioren ehiza-txakurrarekin **auskan** hasi hura. ETC-literatura, saiakera

Semea eskolako umeekin **auskan**. ETC-prentsa

Bai, beti gabiltza eskatzen eta **auskan**, eta horrek nekatu egiten du. ETC-prentsa

Angolako azken hilketak, palestinar eta israeldarrak beti **auskan**, Kolonbiako gaiztakeriak, Afganistango eta Pakistango heriotzak, Nepalgo gerrillaren triskantzak, Sierra Leonako larkeriak... ETC-prentsa

Bakarrak, errepika-ezinak eta ehuneko ehunean originalak garela esatean, bi indar kontrajarri jartzen dira **auskan** nire barruan. ETC-prentsa

3 *auskan egin (corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Eta, handik, Oaxacara, Juan Fernando Marquezen bila, baina, esango dietenez, Kontsularen antzera, taberna batean **auskan egin** ostean, hil egin zuten. ETC-literatura, saiakera

Beste gazte batzuekin **auskan egiteko** zorian egon ginen, baltseoko kontuengatik. ETC-literatura, saiakera

4 *oilar-auska (corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Baina banaka, bi pertsona **oilar-auska** bakoitzeko: su-gurutzatua zeure buruaren kalte izango da, eta emaitzarenerako, noski. ETC-prentsa

---

auskada *iz* hozkada.

Galdutako esperantza bat-batean berpiztu zitzaion orduan Éomerri bihotzean eta, harekin batera, egonezinaren eta beldurraren **auskada** berria. Agustin Otsoa

---

auskalandia *iz adkor* edonongoa den herrialde bat izendatzeko modua.

Erlikiak erakusleihoen bestaldean: ez dakit zein buruzagi mairuren lepoa moztutako ezpata, halakoren galako kasaka eta bandera maiztua, **Auskalandiako** borrokan (ironiak behartzen nau etzanera) erabilitako zizpa dotoretua... eta hainbeste ohorezko tresnen artean, baita euskaldunon ekarpentxoa ere: pistola bat, Guisasola markakoa, Eibarren XIX. mendean egina. Iñigo Aranbarri

---

auskalerri *iz adkor* ziurgabetasunezko Euskal Herria izendatzeko modua.

Hitz horiek idatzi bezain aise, ordea, hor non entzun dudan ahots zakar baten ziria **auskalerriko** bazterren batetik kantuan. Anjel Lertxundi

---

auskalo 1 hitz egiten duenak zerbait inondik ere ez dakiela adierazteko erabiltzen duen hitza.

Baina behin, mahaian geundela, eta **auskalo** zer solas-klasek ekarrita, Frantziako herri txiki baten izena esan zuen aitak. Anjel Lertxundi

Baina **auskalo** ez ote zaien behartuko oso egoera arriskutsuan egotera. Berria - Gaiak

Orduan, notarioaren aurrean, **auskalo** zergatik, gerraren amaieraz hitz egiteko beharra-edo sentitu zuen; beharra, beharbada, gehiegizko hitza zen arren. Ramon Saizarbitoria

Auskalo noiztik sartua zen gure alderdiotara, baina, kontua da XII. menderako egiten direla tresna honen aipamen zehatzak. Patziku Perurena

Etxeraino lagundu diot, **auskalo** zergatik. Iban Zaldua

Klariona, igeltsua edo **auskalo** zer zerrikeria erantsi dioten. Aingeru Epaltza

Auskalo gero ez ote zitzaigun besarkada bat eskapatuko. Fernando Rey

Gero DJ putakumeak **auskalo** zer moldaketa pintxatu duen. Urtzi Urrutikoetxea

Auskalo zer esan zidan gizonak. Joxean Sagaztizabal

2 *interj*

Okerrik ekartzekoa ote zen? **Auskalo**. Pello Zabala

Auskalo! Jon Muñoz

Ingurukoek zelan ikusten ninduten, baina, **auskalo**! Berria - Euskal Herria

Barruan zerbaitek onik irtengo duela esaten digu, baina **auskalo**! Berria - Euskal Herria

3 *auskalo non*

Senarrak ez zuen deus ere egiten, **auskalo non** pasatzen zituen egunak, auskalo nondik ateratzen zuen bizimodua. Karlos Zabala

Tabernara itzul nintekeen, baina **auskalo non** egongo zen agurea. Anjel Lertxundi

Alua gori-gori nuen eta burua **auskalo non**, pentsatzeari utzita baitzegoen. Juan Martin Elexpuru

Arrantzale-herri batean jaio zen, Massachusettsen, Mainen, edo **auskalo non**, eta txirlek izu-ikara ematen zioten, amesgaiztoak izaten zituen haiekin. Karlos Zabala

Han zegoen zutik, zerura begira, zabor poltsa bat -**auskalo non** jasoa- eskuartean zuelarik. Josetxo Azkona

Auskalo non, auskalo noiz, tximista bezala. Juan Garzia

4 *auskalo nongo*

Eragozpentxo burokratikoak zituztela **auskalo nongo** bankutan gordea zuten dirua eskuratzeko. Anjel Lertxundi

Kalaportuko beste karlista handiak ere berdin, **auskalo nongo** soto edo sabai zulotan ezkutatu ziren, Zergatik behartu behar naute goizeko lauetan **auskalo nongo** ukuilutako azpiak ateratzera? Joseba Sarrionandia

Zerraldo batean zegoela sinesten zuten gainerakoek, **auskalo nongo** kanposantu batean lur emana, marmolezko hilarri baten pean. Harkaitz Cano

Hantxe geratzen zen, mugaldeko **auskalo nongo** kuartel-zuloan gorderik aberria defendatzen. Juan Garzia

Nire gainbeherako urteak **auskalo nongo** bazter galduan eman behar baditut, aparretan eta dotoreziaz igaro nahi ditut. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auskalo beste zenbat (4); **auskalo ez ote** (5); **auskalo noiz arte** (8); **auskalo noizdanik** (3); **auskalo noizko** (3); **auskalo noiztik** (16); **auskalo nola** (29); **auskalo nolako** (5); **auskalo non dauden** (3); **auskalo non ibiliko** (5); **auskalo nondik aterata** (3); **auskalo nondik ateratako** (3); **auskalo nondik etorria** (3); **auskalo nongo** (15); **auskalo nor** (7); **auskalo nora** (22); **auskalo noraino** (3); **auskalo norako** (3); **auskalo norekin** (4); **auskalo noren** (3); **auskalo nori** (6); **auskalo ze** (7); **auskalo zenbat aldiz** (5); **auskalo zenbat denbora** (5); **auskalo zenbat urte** (3); **auskalo zenbateko** (3); **auskalo zenbatgarren aldiz** (3); **auskalo zer beste** (3); **auskalo zer egin** (3); **auskalo zer egingo** (4); **auskalo zer esan** (3); **auskalo zer esango** (3); **auskalo zer gehiago** (5); **auskalo zer gerta** (3); **auskalo zer pentsatu** (3); **auskalo zerk** (9); **auskalo zertan** (8); **auskalo zertarako** (4); **auskalo zertaz** (3); **baina auskalo** (18); **bestela auskalo** (3); **edo auskalo non** (6); **edo auskalo nork** (3); **edo auskalo zein** (3); **edo auskalo zer** (15); **edo auskalo zeren** (5); **edo auskalo zergatik** (9); **ere auskalo** (6)

---

auskalogarren *izlag* inondik ere jakiten ez den zenbatgarren aldia.

Bien bitartean, Espainiako hezkuntza ministro andereak martxan du eskolaren **auskalogarren** erreforma, ironia finez "kalitatearena" izendatu duena. Joxerra Garzia

---

auskalogarrenez *adlag* inondik ere jakiten ez den zenbatgarren aldiz.

Atzokoa jakin nuenean, berriz, banekien berriz ere betiko leloa errepikatu beharko nuela mikrofono hauetan, **auskalogarrenez**. Joxerra Garzia

---

auskaloko *izlag* inondik ere jakiten ez den nolakotasun batekoa.

Horregatik da bizia hain gauza bitxia eta arraroa, **auskalokoa** eta parte xelebrekoa, eta zulatu ezina, eta ulertezina. Iñaki Segurola

Bakarrik eta New Yorkeko **auskaloko** muturrean galduta. Harkaitz Cano

Kolpe hark begiak irekiarazi zizkidan: ahots huts besterik ez zen txotxongilo baten lagun egin nintzen; gero, ohartu nintzen ez zela istripurik izan: desestekatuak izan ginen, **auskaloko** zein ordokitan bertan utziak. Karlos Linazasoro

Tarte honetan, **auskaloko** gerra urrunen bateko kanoikaden eraginez edo, harresia eroria dago, eta danbatekoaren alde bateko laparretatik ihesi, eskailera egitura osatu du hondamendiak harritzar haietan. Pako Aristi

Orain jendeak zuripen guztizko bat behar du, euskarri sendoago bat, aurpegi haren zantzuak ez baziren bozkariozkoak, oinaze gorri gordinaren jostorratzarenak baino, aho hartatik izuzko hitz **auskaloko** bat irten bazen, urdina eta larria, lanturuzkoa. Karlos Linazasoro

---

auskultatu, auskulta, auskultatzen du *ad* bularreko edo sabeleko soinuak entzutearren belarriz edo tresnaz aztertu.

Auskultatu hauen medikua kardiologo handia duk. Jon Muñoz

Bera iritsi denean medikua aurkitu du Andresen ohearen ondoan makurtuta, umea **auskultatzen**. Jokin Muñoz

Auskultatu nuen, eta ez nion aparteko gauzarik ikusi. Joan Mari Irigoien

Zoriontsu eta hiztun sentitu zen; iritsi bezain laster, erantzi egin zuten, buruko ileak moztu, ohatila bati metalez lotu, itsumen eta zorabioraino argiztatu, **auskultatu**, eta gizon mozorrotu batek orratz bat sartu zion besoan. Juan Garzia

---

auskultazio *iz* auskultatzea.

Auskultaziorako erabilitako ezpain-zapi garbia tolesten ari zen, ulertuko ez balu bezala, hasieran ikusi ez genuen gaixotasun baten larritasuna ukatu nahian. Joseba Urteaga

---

ausnar ik **hausnar**.

---

ausnarketa ik **hausnarketa**.

---

ausnarrian ik **hausnar 2**.

---

ausnartu ik **hausnartu**.

---

auspizio *iz* emaitza edo gertakari bat igartzeko seinalea.

Erromatarren artean ohitura zen, garrantzi handiko egintza edo eginbehar bati ekin aurretik, augur edo estatuaren igarleengandik arrastoren bat lortzea, emaitza gertagarrienari buruz; eta asmabiderik maiteen eta fidagarriena hegaztien hegakerari erreparatzea iruditzen zitzaien; horretatik ateratzen ziren aztarnei **auspizioak** zerizten. Xabier Olarra

---

austenita *(corpusean ez dago; ETCn **122** agerraldi) iz* burdinaren aldaera alotropikoa.

Altzairu eta burdinurtuaren kasuan, burdina karbonozko aleazioak izanik, hamaika egitura aurki daitezke: ferrita, zementita, perlita, **austenita**, martensita, troostita, sorbita, bainita, ledeburita, steadita eta grafitoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ferritak transformazio polimorfikoa jasaten du eta aurpegietan zentratutako egitura kubikoko **austenita** edo (burdina bihurtzen da 912ºC-an (1.674ºF-an). ETC-zientzia, zuzenbidea

Cu-ak FCC egituran jarraitzen du baina Fe/Co disoluzio solidoa ferritatik (BCC) **austenitara** (FCC) aldatu da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aipatzekoa da Merida et al.-ek neurtutako balioa **austenita** fasean neurtu dela, lagin estekiometriko honen TTM 200 K delako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tenplaketa altzairua **austenita** birsortzeko beste berotzen eta gero, gehienetan, uretan edo oliotan arin hozten burutzen da. ETC-entziklopedia

Iragotu behar den metala puntu kritikoaren azpitik berotzen da, non aleazioaren fase kristalinoak (ferrita eta zementita) konbinatu egiten diren, **austenita** bihurtuz. ETC-entziklopedia

Martensita karbonozko altzairuetan eratzen da, **austenitaren** hozte azkarraren (tenplaketaren) ondorioz. ETC-entziklopedia

---

austeritate *(ETCn **1.488** agerraldi, horietatik **855** azken sei urteetan) iz* soiltasuna, lagungarri eta apaingarririk eza, behar-beharrezkoa bakarrik onartzen duenaren nolakotasuna.

Honek ezein estatuk permititzerik ez daukan indisziplina zekarren: **austeritatea** estatuen autoarautzeen zati bat da. Xabier Amuriza

Ezker Batua indar politiko zuhurra da, justiziaren aldekoa, sendotasuna badugu alde guztietatik egiten dizkiguten erasoei eusteko, eta neurriz jokatzen dugula erakusten ari gara kanpainan ere, **austeritatearen** zentzuan. Berria - Euskal Herria

---

austerizida *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi, guztiak azken sei urteetan) izond/iz* austerizidioa erabiltzen duena.

Ez diogu botorik emanen politika **austeriziden** gurasoari. ETC-prentsa

Harrezkero, aginteko eliteak, kapitalismoa birdefinitu ordez -Sarkozyk hitzemanda bezala- sendotu egin du bere alderik erradikal eta neoliberalena politika **austerizidak** baliatuz. ETC-prentsa

Ez dago politika publikoen mugak eta gizarte-laguntzetan izaten den iruzurra aipatzerik, murrizketa **austerizidez** eta desberdintasun eta bazterketa sozialaren gorakadaz mintzatu gabe. ETC-prentsa

Katalunian ere krisi ekonomikoaren inpaktua oso latza izan zen -eta da-, hainbat faktoreren ondorioz: bere egitura produktibo desindustrializatua, kokapen geografiko periferikoa, estatu espainiarrean duen enkaje prekarioa eta bertako agintariek ezarritako politika neoliberal eta **austerizidak**. ETC-prentsa

Funtsezkoena da Europako Batzordea, Nazioarteko Diru Funtsa eta Europako Banku Zentrala barne dituen Troikak, herri eta gobernu guztiak otzan nahi dituela, bere politika **austeriziden** eta murrizketa sozial nahiz laboralen menpe. ETC-prentsa

---

austerizidio *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi, horietatik **22** azken sei urteetan) iz* gobernuen edo kidekoen politikez mintzatuz, muturreko austeritate hilgarria.

Ezkerrako Jose Miguel Nuinek, berriz, **austerizidiotzat** jo du 2013ko aurrekontu proiektua. ETC-prentsa

Europar Batzordeak "**austerizidioaren**" politika egin du. ETC-prentsa

Austerizidioak horrela agintzen du, eta lanaren mundutik garbi ikusten dugu: lan erreformak, negoziazio kolektiboaren erreforma, erreforma fiskala, LOMCE edota berehalako abortoaren erreforma, besteak beste. ETC-prentsa

Troikak ezarritako aginduen aurrean bestelako bideak egitea posible dela frogatuko lukeelako, **austerizidioaren** aroari bukaera emateko lehen urratsa eginez. ETC-prentsa

Austerizidioaren aurka borroka egiteko aukera bakarra momentua dugu, eta tokian bertan gauzatzen dira baina Bruselatik ezarrita dator. ETC-prentsa

Beraz, **austerizidioak** jende txiroa jipoitzen jarraituko du eta klase ertainen gainbeherak ez du etenik izango. ETC-prentsa

Eta orain arte mantendutako **austerizidio** politikak ez du balio izan hazkunde ekonomikoa eta enplegu tasa handitzeko, kontrara, langabezia igo da, eta prekarietatea, bazterkeria, desberdintasun sozialak eta pobrezia handitu. ETC-prentsa

Gose eta **austerizidio** garaian gizarte harmoniatsu eta oparoaren irudia ematen du. ETC-prentsa

Hala ere, hau izan da erakunde tradizionalen erantzuna: bizkarra ematea kolektibo horiei, eta are makurrago belaunikaraztea **austerizidio** politiketara. ETC-prentsa

Azken bolada honetan **austerizidioaz** dezente hitz egiten ari denez, zer den jakin behar da. ETC-prentsa

"Inprobisazioak" egin beharrean, Egonkortasun Legea bertan behera uzteko eskatu zuen De Simonek, "**austerizidio** neoliberalaren tresna" delako. ETC-prentsa

Lehen bi urte hauek bi kontzepturen bitartez definitu daitezke: **austerizidioa** eta agonia. ETC-prentsa

---

austero *izond/iz* austeritatea duenaren nolakotasuna.

Batetik, gure herriko burgesak apalak eta **austeroak** zirelako. Xabier Mendiguren Elizegi

Berarentzat ere ez zuen ia ezer erosten, soinekoak-eta behar-beharrezkoenak bakarrik, oso **austeroa** zen, berehala pobretu zen familia aberats batekoa zelako agian. Mikel Hernandez Abaitua

---

austral 1 *izond* hemisferioez mintzatuz, hegoaldekoa.

Otsailaren azken aldera uda **australa** amaitu eta eguraldi txarrak hasiko dira. Joseba Sarrionandia

Agindu nion don Alejandrok gonbidatuko zuela Biltzarraren partaide izatera; lauso-antza ihardetsi zidan interesa zukeela hemisferio **australa** bisitatzeko eta bere lehengusu bat, dentista bera, Tasmanian bizitzen jarria zela. Juan Garzia

Lasaitu zenean, lurralde **australak** itxuratzen zituela, besoa luza eta bil ari zen. Itxaro Borda

2 *aurora austral* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Aurora polarra (aurora polar boreala edota aurora polar australa ere bai) gauez zeruan agertzen den distira edo luminiszentzia itxurako fenomenoa da. [...] Ipar hemisferioan, "aurora boreal" izenaz ezagutzen dira; aldiz, hego hemisferioan, "**aurora austral**" bezala. ETC-entziklopedia

Eguzkiaren partikulek goi atmosferan talka egitean sortzen diren argiei deitzen zaie aurora boreala -edo, hobe esanda, poloetako aurora, Hego Polotik hurbilekoa **aurora australa** baita-. ETC-prentsa

Aurora australa ikusita lasai hilko dela erraten du. ETC-literatura, saiakera

Aurora polarra (hau da, aurora boreala eta **aurora australa**). ETC-entziklopedia

3 *austral argentinar* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Austral argentinarra (gaztelaniaz: "Austral"), Argentina Argentinako Errepublikan 1985etik 1992ra zirkulazioan egon zen dibisa da. ETC-entziklopedia

4 *balea austral* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Balea austral ("Eubalaena australis") Eubalaena generoko animalia da. Artiodaktiloen barruko Balaenidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

Debekatua dago Balaena espezieko baleak, hizkera arruntean **balea australak** deituak, arpoiaz jo edo hiltzea. ETC-literatura, saiakera

Urtero errepikatzen duten ibilbidean, **balea australak** atzera ere itzuli dira haien sorlekura, Valdes penintsulara. ETC-prentsa

Balearen gehiegizko arrantzak, ordea, arriskuan jarri du espeziea bera -XIX. mendetik **balea australen** kopurua %90 gutxitu da-. ETC-prentsa

5 *Ozeano Austral* *(corpusean ez dago; ETCn **76** agerraldi)*

Ozeano Australa, Hego Ozeanoa edo Hego Poloko Ozeanoa (eta beste garai batean "Antartikako Ozeanoa" deituta) Lurraren hegoaldean dagoen ozeanoa da, 60° hego latitudeko paraleloaren (edo Zirkulu polar antartikoaren) hegoaldera eta Antartika inguratzen kokatzen dena. ETC-entziklopedia

-Baita niri ere, baina **Ozeano Australean** irlarik irla ibiltzen omen hituen surf taulen gainean. ETC-literatura, saiakera

Ekialderantz joko dute marinelek eta **Ozeano Australarekin** egingo dute topo. ETC-prentsa

Horrez gain, **Ozeano Australa** beste ozeanoak baino azkarrago berotu da. ETC-prentsa

---

australiano ik **australiar**.

---

australiar 1 *izlag/iz* Australiakoa, Australiari dagokiona; Australiako biztanlea.

Australiarraren argudioak asmatu beharko ditu batak, eta zezenarenak besteak. Andoni Egaña

Olinpiar Jokoetan izan eta lehen jardunaldian partida bateko zigorra bete ondoren, **australiarrak** debuta egin du sasoi honetan. Berria - Kirola

Bere poemaren **australiar** aldeko pasarte neke handiko batzuk irakurri zizkidan; alexandrino luze itxuragabeok ez zeukaten hitzaurreak aldez erakusten zuen nolabaiteko bizitasunik ere. Juan Garzia

2 ***australiar aborigen***

Kartzelan hildako **australiar aborigena** 26 urteko Cameron Doomage da. Berria - Mundua

3 ***australiar dolar*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Dolarrak: Estatubatuar dolar Estatubatuarra, **Australiar Dolarra**, Dolar Kanadarra eta abar. ETC-entziklopedia

4 ***australiar futbol*** *(corpusean ez dago; ETCn **50** agerraldi)*

Australiar futbola edo Futbol Australiarra (ingelesez "Australian rules football" edo "Australian football", australiar era informal edo herrikoian "football" edo "footy" bezala ezagunagoa) futbolaren aldaera bat den kirola da, 18 jokalari dituzten bi taldeen arteko norgehiagoka bat da eta zelai obalatu batean itxura esferoidea duen baloi batekin jokatzen da. ETC-entziklopedia

Australian, garrantzitsuagoak dira **australiar futbola**, XIIIko errugbia eta futbola. ETC-prentsa

Hamabiko errugbitik dator, **australiar futbolean** hasiko da ekainean, eta bitartean, Miarritzen, hamabosteko errugbian saiatzen ari da. ETC-prentsa

Kelly bat dator: "Kriketa, **australiar futbola**, futbola goraka doa, errugbia...". ETC-prentsa

5 ***australiar kontinente*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Australiar kontinentea, batzuetan Sahul, Australinea edo Meganesia izenekin ere ezaguna, Australiaren lurrazal kontinentalean dauden lur masek eratzen dute. ETC-entziklopedia

6 ***dolar australiar*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Behatokia berriz eraikitzeko 40 milioi **dolar australiar** beharko dira, gutxi gorabehera. ETC-prentsa

Horiei esker, 24 urtez segidan hazi da, baina lehengaien kontsumoak auzitan jarri du hazkunde eredu hori, eta **dolar australiarraren** balioa txikitu. ETC-prentsa

Dolar Australiarra (AUD), Australiako Mankomunitateko diru ofiziala da. ETC-entziklopedia

7 ***futbol australiar*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Australiar futbola edo **Futbol Australiarra** (ingelesez "Australian rules football" edo "Australian football", australiar era informal edo herrikoian "football" edo "footy" bezala ezagunagoa) futbolaren aldaera bat den kirola da, 18 jokalari dituzten bi taldeen arteko norgehiagoka bat da eta zelai obalatu batean itxura esferoidea duen baloi batekin jokatzen da. ETC-entziklopedia

Futbol australiarreko jokalaria gaztetan, Hewittek (Adelaida, Australia, 1981-02-24) 15 urte eskas zituela eman zuen lehen erakustaldia, Australiako Irekia jokatzeko sailkatuta. ETC-prentsa

Errugbia, **futbol australiarra** eta kanguruak izan dira guretzat Australiako ikurrak, baina azken urteetan hango saskibaloiak ere oihartzun handia lortu du nazioartean. ETC-prentsa

Sistema hauek komertzializatu eta egokitu egin ziren telebista kateetan erabiltzeko, eta baita Australiako Kirol Institutoan eta kirol talde profesionaletan (**futbol australiarrea**n, cricketean eta surfean, adibidez) aplikatzeko ere. ETC-prentsa

1977an gertatu zen, Futbol Liga Ingelesean -futbol izendatzen diren beste jokoak ere (errugbia, **futbol australiarra**, futbol amerikarra, etab.) zero baturako jokoak dira normalean-. ETC-literatura, saiakera

---

australopiteko *iz* Afrikako hegoaldeko antropoide fosila, duela 4-5 milioi urte eta 2 milioi urte artean bizi izan zena eta harria lantzeko gai zena.

Australopitekoarekin gogoratu nintzen. Joxean Sagaztizabal

'Australopitekoa' bezain erne iduri duzu! Ramuntxo Etxeberri

---

austrasiar *izlag/iz* Austrasiakoa, Austrasiari dagokiona; Austrasiako biztanlea.

Orduan, Austrasia bere seme Sigebertori ematea eskaini zien **austrasiarrei**, altxor batekin batera, eta erresumaren eta jauregiaren gobernua Kuniberto Koloniako apezpikuaren eta Adalgiso dukearen eskuetan uztea. Iñaki Iñurrieta

Egun hartan Erroman zertutako zeremoniak bazuen hala ere aurrekari bat Soissons-en K.o. 751n egindako zeremonia batean, Pepin **austrasiar** maiordomoa frankoen errege bihurtu zenean Zakarias aita santuaren ordezkari zen San Bonifaziok koroatu eta gantzutu zuelako. Iñaki Mendiguren

---

austriar 1 *izlag/iz* Austriakoa, Austriari dagokiona; Austriako biztanlea.

Hala dio Ludger Winttgenstein filosofo **austriarrak** bere Tractatusean, logika formalaren ikuspegia bere eginik. Joxerra Garzia

Kostelic kroaziarra eta Alexandra Missnitzer **austriarra** sailkatu ziren Dorfmeisterren atzetik. Berria - Kirola

Vienatik gertu, **Austriarren** aurka ari zirelarik, zauritu zuten Gabriel gaztea. Felipe Juaristi

2 ***austriar eskola*** *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Zientzia ekonomikoan, **austriar eskola** XIX. mendean Carl Menger ekonomialariak (1840-1921) sortu zuen pentsamendu ekonomikoaren eskola bat da. ETC-entziklopedia

Carl Menger (1840ko otsailaren 28 - 1921eko otsailaren 26) **austriar eskola** sortu zuen ekonomialaria izan zen. ETC-entziklopedia

Ryukichi orain hurrengoko mintegian, Marxen balioak eta **Austriar Eskolaren** "baliagarritasun marjinal" kontzeptuaren gainean sortu ziren eztabaidei buruz ari zen pentsatzen, berriz ere horretaz hausnartu beharko zuela liburuetan ikasitakoen laguntzaz. ETC-literatura, saiakera

3 ***Austriar Inperio***

Ez da agian kasualitatea judu-sionismoa eta neo-antisemitismo alemana bata bestearen ondoren sortu izana eskualde geografiko berean, 1918az aurreko **Austriar Inperioan** alemanez hitz egiten zen lurraldeetan, alegia. Iñaki Mendiguren

4 ***austriar txelin*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Austriar txelina (alemanez: Österreichischer Schilling) Austriako diru ofiziala zen 1924ko abenduaren 20tik eta euroaren sarrera baino lehen, 2002ko urtarrilaren 1ean. ETC-entziklopedia

5 ***txelin austriar*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

13,7603 **Txelin austriar** (ATS). ETC-entziklopedia

---

austro 1 *izlag/iz* Austriakoa, Austriari dagokiona; Austriako biztanlea.

Baina mendietan maiz gertatzen da -esango duzu- zuhaitz garaien kukula hurbilek elkar jotzen dutela, **austro** bortitzek hartara beharturik, garrezko lore irekian distiratu arte. Xabier Amuriza

2 ***austro-hungariar*** ik **austrohungariar**.

Aitak **austro-hungariarren** banderapean hartu zuen parte Lehen Mundu Gerran, eta bera, aldiz, aitaren gudarostean ibili zirenen aurka borrokatu beharrean aurkitzen zen orain. Aritz Gorrotxategi

Austria Behereko urtekaria, Vienako urtekari komunala, eta monarkia **austro-hungariarraren** gorteko eta hiriko liburua ere eskatu zituen, eta, lehenbiziko bietatik, baita aurreko urtekoa ere. Anton Garikano

Horko ezaugarri guztiek markatu zuten haren bizia: Vienarra izateak, inperio **austro-hungariarraren** hiriburua kultura klasikoaren bihotzetako bat izan baitzen XIX. mende osoan eta baita, modu tragikoago batean, XX.aren hasieran. Berria - Kultura

---

austrohungariar *izlag/iz* Inperio Austro-Hungariarrari dagokiona. ik **austro 2**.

Inperio **austrohungariarreko** poetak bizitzaren karelean bizi izan dira, Rothen pertsonaiak monarkiaren ekialdeko aldirietan bezala; zain bizi izan dira edo akabera baten oroitzapena berritzen. Anjel Lertxundi

Armada **austrohungariarreko** ofiziala, 1915ean Italiako frontean zauritu zuten. Pablo Sastre

Inperio **Austrohungariarrak** gerra aldarrikatu zion Serbiari, 1914ko uztailaren 28an. Pello Salaburu

---

austronesiar *(corpusean ez dago; ETCn **278** agerraldi) izlag/iz* Ozeania eta Asiako hego-ekialdeko herrien multzoa; herri horietako herritarra; herri horietako hizkuntza.

Indonesiarrak **austronesiar** modernoak dira. ETC-literatura, saiakera

Manam hizkuntzan (**austronesiar** familiako hizkuntzetako bat) gara hitzak 'urratu' esan nahi du, eta gara-gara-si, berriz, ' (zerbait) urratzen'. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azpiatal honetan, bi hizkuntza **austronesiar** aztertuko ditugu, tagaloa eta malgaxea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esate baterako, tagaloa **austronesiar** familiakoa da, guaraniera, tupiar-guarani familiakoa, txinera familia sino-tibetarrekoa eta arabiera afro-asiatikokoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alabaina, elkartutakoren bat kontinenteren baten izena bada, marratxo barik idatziko da, esaterako indoeuropar, afroasiar eta **austronesiar**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Austronesiar populazioak **Austronesiar** zabalkundearekin batera arroza (baita txakurrak eta txerriak ere) Taiwanera pasa zen, ondoren Filipinetara eta K.a. 500 urterako Indonesiako uharte nagusietan arrozaren landaketa handiak zeuden sumendi inguruetako lur aberatsetan. Zabalkunde beraren bidez lehenengo milurtekoan iritsi zen Afrika ekialdeko uharteetara, Madagaskarrera eta Komoreetara adibidez. ETC-entziklopedia

Austronesiar hizkuntzak familia-hizkuntza bat da. 1.257 hizkuntzek osatuta, Madagaskarretik Polinesiaraino zabalduta dago. ETC-entziklopedia

Cebuera **austronesiar** familiako hizkuntza bat da. ETC-entziklopedia

---

autarkia **1** *iz* norberak ekoizten dituen ondasunetatik bizitzeko gaitasuna.

Haragi gorria erosten zuen Yvanek beretzat, eta **autarkia** betean bizi ginen gu handik aurrera. Joxan Elosegi

Adiskidantzaren kasuan, adibidez, bakoitzak lehenengoz bere burua maite behar du, eta soilik ondoren besterena (**autarkiaren** ideia ote da hau jada?). Askoren artean

2 *iz* bere beharrak bere ekoizpen ahalmen soilaz, atzerrira jo behar gabe betetzen dituen herri edo estatuaren egoera.

Ricardok, ordea, truke librea hobea dela beti **autarkia** baino frogatzen du, baldin herrialde bakoitza abantaila konparatibo handiagoa duen ekoizpenean espezializatzen bada. Koro Navarro

Hori egitean autarkikoak izateari utzi zioten, eta jada ezingo ziren **autarkiara** itzuli, nahi izan balute ere. Iñaki Mendiguren

Dudarik gabe, beste hainbat ikuspegitatik ere begira dakioke (eta begiratzen zaio) elikatzeari: psikologiatik, politikatik (**autarkian**, adibidez, kontsumo-ondasunen zerrendak murriztu egiten dira, inportazioak debekatuta), ekonomia hutsetik, erlijio aldetik, modatik etc. Edorta Agirre

1950ean, Euskal Herria **autarkian** bizi zen, Frankismoak ezarritako diktadura zurrunean. Berria - Kultura

---

autarkiko *izond* autarkiari dagokiona.

Propaganda nazionala lagun, lurralde independentea, totalitarioa eta **autarkikoa** sortu zuen. Berria - Mundua

Merkatuen existentziaren eta dirua erabiltzeko ohituraren zabalkundearen ondorioz, apurka-apurka, ekoizpen-sistema **autarkikoa** pitzatu egiten da, eta jardueren espezializazioa sortzen da. Koro Navarro

Etxea eremu **autarkikoa** bihurtuko da, harik eta beregaina den bunkerra bihurtzen den arte, iragarri zuen Gubern-ek. Txema Ramirez de la Piscina

Halako gabezi urteak tokatu gabe ere, baserrikoa bizitzaren kultura da izatez, **autarkikoa**, ahal den neurrian autosufizientziara jotzen saiatzen dena. Xabier Mendiguren Elizegi

---

autentifikatu, autentifika(tu), autentifikatzen *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi)* **1** da/du *ad* autentikotasuna bermatu. ik **kautotu**.

Gainera, ordenagailua izango balitz bezala, hainbat erabiltzaileren artean aukeratu eta **autentifikatu** ostean, bakoitzak bere kontu propiora sarbidea dauka, norbanako bakoitzarentzako konfigurazio eta aukerekin. ETC-prentsa

ETA lehergailuen lapurreta prestatzen ari da bere mehatxua **autentifikatzeko**? ETC-prentsa

Gako pribatuarekin zifratzen denean, berriz, dagokion gako publikoarekin edonork deszifratu ahal izango du, baina mezuaren iturburua edo igorlea zein den kautotuta edo **autentifikatuta** geratuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazioarekin elektronikoki komunikatzeko eskubidea aitortzeak, lehenik eta behin, herritarrekin harremanak izateko administrazio horren egoitza elektronikoa argi eta garbi zehaztu beharra dakar: identifikatzeko eta **autentifikatzeko** araubidea, gutxieneko edukia, babes juridikoa, erabilerraztasuna, eskuragarritasuna eta erantzukizuna sustatuko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

autentifikatze *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi) iz* autentikotasuna bermatzea. ik **kautotze**; **autentifikazio**.

Erronka-erantzun protokoloaren adibiderik errazena pasahitza **autentifikatzea** da, non erronkak pasahitza eskatzen duen eta erantzun balaigarria pasahitza zuzena den. ETC-entziklopedia

---

autentifikazio *(corpusean ez dago; ETCn **50** agerraldi)* **1** *iz* autentikotasuna bermatzeko modua. ik **kautotze**; **autentifikatze**.

Kautotzea, **autentifikazioa** edo egiaztatzea objektu baten ezaugarriren bat egiaztatzeko prozeduren multzoa da. Ezaugarri hau, mezuaren igorlea, mezuaren osotasuna eta abar... izan daitezke. ETC-entziklopedia

Hiztegi bidezko erasoak: datuen **autentifikazioen** eredu batzuetan, sistemara sartzeko pasahitza sekretu mantentzen da. ETC-entziklopedia

Gainera, batzuetan, SMTPren kasuan ez da derrigorrezkoa erabiltzailea eta pasahitzaren bidezko **autentifikazioa**. ETC-prentsa

Alde horretatik, Carmen Carnero andrea, Interneteko banku-txartelaren bidezko transakzioen segurtasuneko alderdi nagusiez mintzatu zen, zein konfidentzialtasuna, integritatea eta **autentifikazioa** baitira. ETC-prentsa

Gainera, batzuetan, SMTPren kasuan ez da derrigorrezkoa erabiltzailea eta pasahitzaren bidezko **autentifikazioa**. ETC-prentsa

Alde horretatik, Carmen Carnero andrea, Servired/Sermerpa, Visa España, eta Semp enpresa-taldeko zuzendariorde nagusia -esperientzia handiko enpresaburua-, Interneteko banku-txartelaren bidezko transakzioen segurtasuneko alderdi nagusiez mintzatu zen, zein konfidentzialtasuna, integritatea eta **autentifikazioa** baitira. ETC-prentsa

Hau da, ez da behar zordunaren sinadurarik nahiz **autentifikaziorik**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Maila honetan, aplikazioen funtzionalitate gehiago ere kudea daitezke, adibidez, segurtasun-egiaztapenak, identitate-**autentifikazioa** eta beste hainbat funtzio. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 *faktore anitzeko autentifikazio* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Faktore anitzeko autentifikazioa, kautotze autentifikazio metodo bat da zeinean ordenagailu erabiltzaile batek autentifikazio mekanismo batean gutxienez bi froga edo faktore aurkeztu behar ditu sarbidea lortzeko. ETC-entziklopedia

Faktore anitzeko autentifikazio-planek pasahitzak ("ezagutza-faktore" gisa) autentifikazio-bitarteko batekin edo gehiagorekin konbinatzen dituzte, autentifikazioa seguruagoa izan dadin eta konprometitutako pasahitzekiko zaurgarritasun txikiagoa izan dezan. ETC-entziklopedia

---

autentiko *izond* egiazkoa, benetakoa.

Hauek **autentikoak** dira, inolako zalantzarik gabe, Cohibas marka banatzen duen saltzaile ofizialak ekarriak. Jon Alonso

Gasna-ninia kultura **autentikoa** zen, esportatzea merezi zuen bakarra. Itxaro Borda

Pentsatu zuen mundu honetan ezer ez dela **autentikoa**, baizik eta noizbait, lehenengo aldian **autentikoa** izan zen zerbaiten kopia itsusia. Eider Rodriguez

Kontatu zuen langile **autentiko** bat egon zela kartzelan. Unai Elorriaga

Ofizioaren tranpak ikasi ez dituen aktoreaz baliatzen duk zerbait **autentikoa** lortzeko. Iñaki Iñurrieta

---

autentikotasun *iz* autentiko izatearen nolakotasuna. ik **benetakotasun**; **egiazkotasun**; **zinezkotasun**; **kautotasun**.

Alegia, konfiantza osokoak zirela, eta ez zuela batere dudarik egiten **autentikotasunaz**. Jon Alonso

Erotu izanaren sentsazioa izan zuen une batez Monikek, ohartu zenean, pare bat ordu lehenago, munduko emakumerik zoriontsuena sentitu zela Karlen ondoan, unearen **autentikotasunagatik** maitemindurik sentitu zenean. Eider Rodriguez

Zaddie Smithek Generación quemada antologiari egindako epilogoan zioen gaur egungo ipuingile estatubatuarren lanetan maiz bi obsesio daudela presente: heriotzarekiko kezka eta **autentikotasunaren** galera. Berria - Kultura

---

autentizitate *iz* autentiko izatearen nolakotasuna. ik **autentikotasun**.

Urrunetik gentozen **autentizitate** bila: ezpainetan ez baina, aditza hor zegoen bizi-bizia eta pilpiran, jangarri. Itxaro Borda

---

autismo 1 *iz* nahasmendu psikologikoa, norberaren barnera biltzea eta kanpoko munduarekiko interes falta ezaugarri dituena.

Haur-**autismoa** diagnostikatu zioten une hartan, eta garapen-arazoak zituzten haurrentzako eskola berezi batera bidaltzeko bidea prestatu zioten. Xabier Olarra

Ez adimen urriturik, ez **autismoaren** arrastorik, ezta besteekin harremanak izateko eragozpen organikorik ere. Oskar Arana

Baserrietako atarian zenbat potekarro pilatzen diren ikustea besterik ez dago jabetzeko baserri-giroko **autismoak** (nork esan behar zuen?) ez diola xiudadekoari batere zorrik: bizia beti beste nonbait dago. Iñaki Segurola

Uste dute adiskideek **autismoan** bizi naizela, isila bainintzen eta orain urrundurik bainago hemen. Piarres Aintziart

2 *autismo espektroko nahasmen* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arabako unitatean, gaixoentzako eta familientzako jarraipen psikiatriko eta psikologikoa eskaintzen dute, eta eskolekin eta **autismo espektroko nahasmena** duten pertsonak laguntzeko elkarteekin elkarlanean aritzen dira. ETC-prentsa

3 *autismoaren espektroko nahasmen* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Espektro autista edo **Autismoaren Espektroko Nahasmena**, (AEN) edo Autismoaren Espektroko Asaldura giza-burmuinaren garapenaren ezintasun taldea da. ETC-entziklopedia

Irudietan oinarritutako programen bitartez, adibidez, askoz errazagoa da **Autismoaren Espektroko Nahasmenak** (AEN) edota Lengoaiari loturiko Nahasmen Espezifikoak dituztenengana hurbiltzea, haien mundua ulertzea. ETC-prentsa

4 *autismoaren espektroko nahasmendu* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

AEN **Autismoaren Espektroko Nahasmenduekin** lan egiten dutenen erronketako bat da: ahalik eta goizenen atzematea gaitza. ETC-prentsa

Eneko Castiñeyrari 3 urte zituela diagnostikatu zioten **autismoaren espektroko nahasmendua**. ETC-prentsa

Retten sindromea eta **autismoaren espektroko nahasmendu** guztiak garapenaren nahasmendu orokortuak dira. ETC-entziklopedia

---

autista 1 *izond/iz* autismoa duena; autismoari dagokiona.

Halako fixazioak oso arruntak dira **autisten** artean. Xabier Olarra

Arrebaren senar **autista** lurrera begira zen, arreba hitz ulergaitzak ahopeka zerabiltzala, aita eta ama noiz edo noiz elkarri begiratu, noiz edo noiz elkarri ardoa zerbitu eta noiz edo noiz ardoa edanez. Harkaitz Cano

Gauaren anparoan, ohetik jaiki eta **autista** pabilioiko guztien oinetako lokarriak lotzen zituen. Bernardo Atxaga

2 irud/hed

Dena (etorkizun prospektiboa barne) dakien gizajoa **autista** supiziente bat da. Iñaki Segurola

Orduan naiz isiltasunean sartu, sekta batean bezala bai kasik **autista** bilakaturik: ez naiz mintzatu barnean sortu ziren mamuetaz. Piarres Aintziart

Batzuetan idazle **autista** naizela iruditzen zait, idatzi, komunikatzen saiatu eta jada inork ez ulertzen. Ana Urkiza

Autista halakoa; "Musu-triste" erraten diodalarik ere ez du muturjea argitzen. Aingeru Epaltza

3 *espektro autista* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Espektro autista edo Autismoaren Espektroko Nahasmena, (AEN) edo Autismoaren Espektroko Asaldura giza-burmuinaren garapenaren ezintasun taldea da. ETC-entziklopedia

Autismoarekin erlazionatuak dauden sindrome eta egoera gehienak, **espektro autistaren** barruan koka ditzakegu. ETC-entziklopedia

Espektro autistaren nahasteetan genetikak eta epigenetikak duten pisuaz ari zitzaidan, Elhuyar aldizkarian argitaratuko den artikulu nagusirako. ETC-prentsa

150 pertsonatik batek du EAN **Espektro Autistako** Nahasmendua: batez ere, komunikatzeko arazoak izaten dituzte. ETC-prentsa

Espektro autistaren zailtasunaren funtsezko ezaugarria deskribatu beharko bagenu, ziur aski bat etorriko ginateke aipatzean gizarte-gaitasunik eza eta gogamenaren teoriaren garapen-mailako arazoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

auto-stop ik **auto 3**.

---

auto[1] **1** *iz* automobila. ik **beribil**; **kotxe 3**.

Metro gutxitara bi ohe, eta, behar izanez gero, kalean bi **auto** eta Euskal Herriko ferdetasuna. Joxean Sagaztizabal

Gizakia, beraz, **autoan** sartu eta autobideetan galtzen da. Unai Elorriaga

Gurdi, **auto**, bus, kamioi edota tren, guztietan antzeko hersturak loaren egiteko. Xabier Montoia

Auto baten bila eta bila aritu naiz garaiz etortzeko! Baina oraindik hasi gabe zaudete, ikusten dudanez. Josu Zabaleta

Orai, gauzak ez dira arras hola ikusten bainan **auto** berrien arrakastari beti kasu egiten zaio halere. Herria

Antena aldatu, beste **autoarekin** arazoa aztertu, probak egin... alferrik! azkenean walkie-talkie-arekin moldatu dira. Berria - Kirola

Autoen gurpil azalekin abarkak egiten hasi zen. Iñigo Aranbarri

Gizakume kontsumistaren aspirazio nagusia kontsumo merkatuko produktuez jabetzea da: telebista programa bat, halako **auto** modelo berria, liburu arrakastatsua, halako instituzioaren saria, eta abar. Patziku Perurena

Telebista, oinetakoak, **autoa** edo telefono mugikorra izateak dena soluzionatuko balu bezala. Jasone Osoro

2 *iz* (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa).

Azken urteetako ohiturari jarraituz, **auto** lasterketak ere izan ziren Belodromoan. Berria - Kirola

Beti Dursleytarrek kontaturikoa sinetsiz, hau da, bekokiko orbaina gurasoak hil ziren **auto**-istripuan egin zitzaiola. Iñaki Mendiguren

Auto-egileak dena espantu, gero eta ederragoak egiten direla autoak, eta jendea loriatua. Herria

Bera guregana etorri zen, ez gonbidatu gisa, ez paseko atzerritar gisa, baizik eta, soldaduekin eta **auto**-gidariekin etorri zen, gerrak hondatutako bideetatik barrena. Felipe Juaristi

Izotzak bete zuen bat-batean **auto**-barru afoinutsu kiskalgarria. Txillardegi

3 ***auto-argi***

Egongela beheko solairuan eta etxeko atariaren ondoan zegoenez, une hartan aipatutako gelan isilik zeuden lau pertsonek ondo baino hobeto ikusi zuten leihotik sartuta beraienganaino iritsi zen **auto-argia**. Aitor Arana

4 ***auto autonomo*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Autogintzan eta gidaririk gabeko **auto autonomoan** erabakigarria izango da 5G teknologia. ETC-prentsa

Auto elektrikoarekin batera, **auto autonomoa** zabaltzen hasiko da. ETC-prentsa

Eta **auto autonomoak** izaten ditugunean, zer? Zeinek erabakitzen du auto horren portaera? ETC-prentsa

Ibilgailu autonomoa, ezaguna da ere gidari gabeko autoa bezala. **Auto autonomoak** giza kontrolaren ahalmenak imitatzen ditu. ETC-entziklopedia

5 ***auto elektriko*** *(corpusean ez dago; ETCn **961** agerraldi; horietatik **505** azken sei urteetan)*

Auto elektrikoa motor elektriko batek higiarazten duen auto mota da, bateria elektriko batek elikatua. ETC-entziklopedia

Auto elektrikoaren ikerketan egundoko dirutza gastatzea posible da, eta patenterik ez bada lortzen, zer egingo diogu ba". ETC-literatura, saiakera

Esan nahi baita, tona bat artalek sortutako bioetanola erreta auto batek distantzia laburrago korrituko luke, tona hori erre, energia elektriko bihurtu eta **auto elektriko** batek korrituko lukeena baino. ETC-literatura, saiakera

Otsailean Donostian juntatu ziren Europako Batasuneko gobernuen ordezkariek **auto elektrikoaren** aldarria egin zuten. ETC-literatura, saiakera

Nabarmen gelditu zen aurreko udako gertakari bati buruz egindako adierazpenetan ere, Donostiako Txioka tabernan agertutako jostailuzko **auto elektrikoaren** leherketa kale borrokako "ekintza klasikoa" zela esan zuenean. ETC-prentsa

Auto elektriko bat sortu duen Reva enpresak ibilgailuaren aginte-mahaian sartu du Mobilis. ETC-prentsa

Frantziako Gobernuak lege ugari egiten ditu ingurumenaren izenean baina gero ikusten delarik nolako autoak baliatzen dituzten bidaietan, edo zerbitzuetan, ikusten da **auto elektrikorik** ez dagola. ETC-prentsa

Bioerregaiez aparte "hidrogenoa eta **auto elektrikoak**" ere bultzatu ahal izanen dira. ETC-prentsa

Sortzaileen iritziz, etorkizuneko autoak **auto elektrikoak** izango dira. ETC-prentsa

Auto elektrikoentzat bateriak egingo dituzte Nissan eta Nec etxeek. ETC-prentsa

Diru hori ez da salbamendu planetik aterako, **auto elektrikoak** sustatzeko funts batetik baizik. ETC-prentsa

Gasolioaren garestitzea dela eta -jarraitu du irratiko esatariak- **auto elektrikoen** fabrikatzaileek, 2010. urterako auto garbia merkatuan eskuragarri izango dela adierazi dute. ETC-prentsa

Ardo ekologikoen dastatzea 12: 30ean, Ardoaren Museoan, eta ibilaldiak herrian zehar goiz eta arratsaldez **auto elektriko**, txirrindu eta bestelakoetan. ETC-prentsa

Auto elektriko bat egitea izango da AIC zentroaren proiektu nagusia. ETC-prentsa

Auto elektrikoen aldeko apustua handitzen ari da. ETC-prentsa

Beste adibide bat Renault enpresarena da, **auto elektrikoak** bateriarik gabe erosteko aukera ematen baitu; alokatu egiten ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 ***auto gidari***

Espainiako kalea zeharkatu zuenean, **auto-gidari** baten laidoak jasan zituen. Itxaro Borda

Livia ohartu zen horretaz, segur aski bera zelako **auto gidaria**. Joxemari Iturralde

Atzerako ispiluan bidaiariari begiratu ondoren, neurria hartu zion **auto-gidariak** morroi hari: jantzi-jantzi egina, ausart itxurakoa, eta kankailua! Jon Muñoz

Aldapa beherantz, ziztu bizian gindoazela sartu gara, gainera, eta une batzuetan **auto gidarien** pare sentitu gara. Berria - Kirola

Auto gidariei zein oinezkoei erne ibiltzeko deia egin diete. Berria - Harian

Gurin pila bat jateko, zuku pila bat edateko, denbora pila bat kanilako urarentzat eta **auto gidarientzat**. Bernardo Atxaga

Halaxe aurkeztu zidaten Omar Hassim-Ali, berrogeita hamahiru urteko egiptoar **auto-gidari** bat, emaztea, lau seme-alaba eta sei iloba zituena. Oskar Arana

Ulertzen dut medikuntza irakasteko irakasle bat behar baldin bada, irakasle euskaldun berri baten edo **auto gidari** euskaldun berri baten kontratatzea ez dela lan erraza, horrek kostua sortzen baitio administrazioari. Pello Salaburu

Eta ez harritu atea gaizki itxita daraman **auto gidariak**, leihatilatik ezker eskua atera, eta adarrak erakusten badizkizu, isiltzeko behingoz, madarikatua. Joxerra Garzia

Lagun bati adarra jotzen ari gatzaizkiola ordea, eta **auto-gidari** txarra dela esan nahi badiogu, izan daiteke errima kaxkarra. Andoni Egaña

Krisiaren aldapa pikoan, Lázló - József Bírók hainbat eginkizun izan zituen: aduanak zaintzen ibili zen, **auto-gidari**, hainbat tresnaren saltzaile, burtsako artekari... J.M. Olaizola "Txiliku"

Gérard **auto gidari** bortitza da. Eneko Bidegain

Edota, birtuosismo ikusgarriz, narratzaileak, autopistan galduriko gizasemearen kontzientziatik, berton betirako galdurik utziko duen **auto-gidariarenera** jauzi egingo du ezustean ipuinaren azken paragrafoan. Markos Zapiain

Bi **auto-gidariren** arteko auzia. Anjel Lertxundi

7 ***auto gidaridun***

"Ikustera etortzeko esan ninan", adierazi zidan marabutak bere **auto gidaridunaren** barrualdean, "horra zer egoeratan hagoen orain". Joxan Elosegi

8 *auto hegalari*

Esan zion Ronek eta biek txiripaz topatu zutela **auto hegalari** bat, geltoki ondoan utzita. Iñaki Mendiguren

Auto hegalariak egongo ote ziren? Iban Zaldua

9 *auto ilara*

Aldameneko **auto-ilara** apur bat mugitu da. Urtzi Urrutikoetxea

Thatcherrek eztarria garbitu eta aurpegia jiratu zuen leihotik bi **auto-ilara** amaigabeak ikusteko, geltoki aurretik igaroan. Lopez de Arana

Adibidez, sekulako hondakinak dakartzan sute edo uholde handi batek, edo hiri handietan izaten diren **auto-ilarek**. Iñaki Heras

Auto ilara poliki doa aurrerantz. Karlos Linazasoro

Istripuaren ondorioz ez zen inor zauritu, baina hainbat kilometrotako **auto ilarak** eragin zituen. Berria - Euskal Herria

Halere, **auto ilara** luzeak sortu ziren, batez ere, A-8 errepidean, Bilboranzko norabidean. Berria - Euskal Herria

Urtebete baino gehiago da ez naizela emakume batekin oheratu, eta ametsak izan ditut joan den hamabi egun honetan goizero, **auto-ilarak** sortzen zirela hiriko hamabi lekutan. Oskar Arana

Nolabait ere, ez jakin nola, moldatu ziren semaforoetan mugitu gabe zegoen **auto-ilara** luzearen buruan jartzeko. Iñaki Mendiguren

Lehengoan **auto-ilara** batek harrapatu hinduen eta hamaika jira-bira eman behar izan hituen lanera iristeko. Iban Zaldua

Eta hala, apurka-apurka, laster egin ziren **auto ilarak** gasolindegietan, inoiz ez bezain luzeak eta grisak gainera, edo inoiz ez bezain ilunak eta mingarriak. Karlos Linazasoro

Goizeroko **auto-ilara** luzean itxaroten zegoela, ezinbestean konturatu zen arraro jantzitako jende asko zebilela inguruan. Iñaki Mendiguren

Kolorez aldatu zen semaforoa eta **auto ilararen** abiadura berdinean galdu zen. Itxaro Borda

Bazter batean bizitzeak badu alde ederrik: autoan orduak eta orduak eman arren, Borda ez du inoiz oztopatzen gure garaiko ikurrik nabarienak, **auto ilara** afrusak alegia. Markos Zapiain

10 *auto istripu*

Auto istripuan hil zen, ni bisitatzetik etxera zihoala. Harkaitz Cano

Jose Antonio Agirre eta Manuel Irujo onik irten ziren Bartzelonatik Parisera bidean 1937ko hondarrean izan zuten **auto istriputik**. Jokin Urain

Olagarroaren eitea du sakabanaketak, eta bere besoetatik (**auto istripu** hilgarriak, ekonomia kostu ikaragarria, etenik gabeko egonezina) ihes egitea oso zaila da". Jokin Urain

Duela urte gutxi batzuk **auto istripu** batean hil zen Carmenen ama, Angelen amama, bisitatik bueltan zihoazela. Jokin Urain

Rodolfo hila zen **auto-istripu** batean. Karlos Zabala

Ez du deus kobratuko, **auto-istripu** batean hiltzen banaiz, edo hegazkin-istripu batean. Karlos Zabala

Gazte bat hil da Soraurenen, **auto istripu** baten ondorioz. Berria - Euskal Herria

Bi pertsona hil dira igandean izandako bi **auto istriputan**. Berria - Euskal Herria

Urte batzuk geroago, jarraitu zuen Sanzek, **auto-istripu** batean hil ziren ahizpa biak. Iban Zaldua

Cristina urte eta erdi geroago hil zen, gurasoekin batera, **auto-istripuan**, herrira asteburua igarotzera zihoazela. Iban Zaldua

Rikardo Arregi **auto istriputik** salbatzea, ordea, gauzagarriagoa zirudien, garbiagoa: Sasiolako bihurgunera iritsi eta zorigaiztoko arbola moztearekin nahikoa. Iban Zaldua

Zortzi edo bederatzi urte zituela, **auto istripu** batean. Iban Zaldua

Azpian, titulua: "Lantziegon ikastolako hiru andereño hil dira **auto istripu** batean". Iñigo Aranbarri

Esate baterako, hitzartua dago ez dela **auto istripuetan** hildakoen aurpegirik eman behar. Iñigo Aranbarri

Egin kontu zenbat tipo bizkor dabilen inguruetan **auto-istripuen** eta zauri pertsonalen iruzurrak asmatzen, edo zenbat merkatari beren denda eta biltegiei su ematen, edo zenbat beren heriotza faltsutzen. Oskar Arana

Auto-istripuak irudikatzen nituen, trenak iraultzen, eskailera luze pikoetatik behera erortzen zela. Oskar Arana

Meñakarrak ez du ulertu zergatik Donostiako ospitalean **auto istripua** izan ostean nongo mina duen galdetu, "lepokoa" esan, eta, lepoa begiratu barik, sama bueltan jarri dioten iduneko ortopedikoa. Iñigo Aranbarri

Harridura aurpegitik ezkutatzeko astirik izan aurretik jakin zuen **auto istripu** batean hil berri zela lankidearen senargaiaren anaia. Imanol Zurutuza

"Kristo gurutziltzatua!" Txikizioak **auto istripu** baten ondorioa dirudi. Patxi Iturritegi

11 *auto rickshaw* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Iraultza halakoa, baina, erraldoien aurrerapausoa edo aurrerapauso faltsua ote? **Auto-rickshaw** deritzen triziklo motordun batean txango bat eginez gero, begien bistakoa da Bangalore hiria ez dagoela alderatzerik mundu garatuko haren izenkideekin. ETC-prentsa

Auto-rickshaw batean taxi gisa erabiltzen duten triziklo motorduna da zihoan, eta ibilgailua azpiz-gora geratu zen. ETC-prentsa

12 *auto-stop* *(orobat **autostop**) iz* oinezko batek errepide ertzean gidariei keinu berezia eginez eraman dezaten eskatzea; bidaiatzeko modu hori bera.

Lauaxetak bizkar-zorrotik ateratako aterki handi baten babesean jarri ginen bide bazterrean **auto-stop** egiten. Juan Luis Zabala

Erasoa jasan duen gazteak 18 urte ditu eta **auto-stop** egiten ari zen, Baionako Maignon bidegurutzearen ondoan dagoen saltegiaren baten parean. Berria - Euskal Herria

Ez ibilgailurik ez dirurik, **auto-stopez** abiatu ginen, uztail gorrian, errepideko marra etzanak ere urtzen ari ziren sasoian. Aingeru Epaltza

-Bestea, zera -nik erantsi-, ez zaitezela Erromara **autostopez** joan. Joxe Austin Arrieta

Bigarrenaren arabera, berriz, gidari batek errepidean **autostop** egiten ari den neska bat hartzen du autoan. Bernardo Atxaga

Bidean jendea **auto-stop** egiten ikusten dut. Edorta Jimenez

Gaua Miarritzeko diskoteka batean igaro ostean, **autostop** egin zuen eta 50 urteko gizonezko batek hartu zuen. Berria - Euskal Herria

Bai, horra hor, Albizturko irteeran, gizonezko gazte bat, ez horren ederki jantzia, **autostop** egiten. Gotzon Garate

Strasbourg-en gaindi Parisera heldu zen **autostopean** biziki fite. Marzel Etxehandi

Autopistatik nindoan neure portschean, ziztu bizian, gizon bat ikusi nuenean bide bazterrean, **auto-stop** egiten. Joan Mari Irigoien

13 *auto-stop egile* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Berrikiago, "tokietara azkar iristeko eskubidea", konparazione, aipatu du, AHTren sostengarri, inoiz inon lehenago jaso gabeko eskubide bitxia (edozein **auto-stop egile** galaktiko harrituko lukeena). ETC-prentsa

Narrazio guztiek dute irakurketa arretatsuago bat: Autostoplaria deiturikoan hatzginak - **auto-stop egileak** - erakusten digun moduan, zeinak ebasten dion poliziari berari jarri berri dion isuna: "Galtzaileei ez diet sekula ezer kentzen". ETC-prentsa

Edo mesedezko edo onberako garraioa, gidatzailearen eta **auto-stop egilearen** artean nolabaiteko hitzarmenik egon bada, baina ez kortesiazko garraio hutsa baldin bada, orduan garraiatzailearen balizko erantzukizuna kontratuz kanpokoa baita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Atzerako ispiluan **auto-stop egilea** ikus dezake autorantz presaka datorrela. ETC-literatura, saiakera

"Hitch-hiker's Guide to Europe" (Europako **auto-stop egileentzako** gida) gidaren kopia bat zuen, eta "norbaitek Galaxiako **auto-stop egileentzako** gida bat idatzi behar zuela" bururatu zitzaion. ETC-entziklopedia

14 *auto-stop egin*

Honela duk interesgarria Lauaxeta, nire ondoan **auto-stop egiten** euripean, niretzat bakar-bakarrik mintzatzen, niretzat bakar-bakarrik arnasa hartzen. Juan Luis Zabala

Bidean jendea **auto-stop egiten** ikusten dut. Edorta Jimenez

Frantses anitz, bizpahirunazka, kanpalekutik eskapatzen ziren, mendealera buruz, **auto stop eginez**. Marzel Etxehandi

Autopistatik nindoan neure portschean, ziztu bizian, gizon bat ikusi nuenean bide bazterrean, **auto-stop egiten**. Joan Mari Irigoien

Azken amodioak ez bide dio luze iraun, eta **auto stop eginez** lortu du furgoneta harrapatzea. Patxi Zubizarreta

Auto-stop egiteko asmoa du. Patxi Iturritegi

Aspertuan egon behar izango nukeen goiz osoan arratsaldeko autobusaren zain eta horregatik jarri naiz **auto-stop egiten** bide bazterrean. Koldo Izagirre

15 ***bonba auto*** lehergailu bat ezarri zaion ibilgailua, atentatu edo eraso bat egiteko erabiltzen dena.

Eta Etxauriko gereziak nola, sasoian, Milango moda erakustaldiko modeloari soinekotik askatu zaion titi gorriak, berriz, **bonba-auto** baten indarra hartzen du. Iñigo Aranbarri

ETA erakundeak **bonba-auto** bat jauzarazi du Madrilgo olinpiar eremu batean, gune hori oso zaindua zagolarik alta. Herria

Mutu, adibidez, **bonba-auto** hura telebistan ikusi zutenean, manta baten azpian zetzan politiko ezagun haren gorputik ez oso urruti; eta mutu ere gaur, beste **bonba-auto** batek lau gixajo -"bai, gixajo", esan du berekiko- inork ez ezagutzeraino txikitu dituenean. Jokin Muñoz

Bagdadeko Libano Mendia hotelaren aurka **bonba-auto** batek eztanda egitean 7 lagun hil zirela herenegun iragarri zuten atzo, hasierako balantzea nabarmen murriztuta. Berria - Mundua

16 ***erratz-auto*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Erratz autoa edo erratz automobila errepideko txirrindularitza lasterketa bati jarraitzen dion ibilgailua da. Baimendutako epean helmugara iristeko gai ez diren txirrindulariak atzean uzten dituen ibilgailua da. ETC-entziklopedia

Lagun arteko lasterketa izan arren, motorra, argazkilaria eta **erratz-autoa** ere han izan ziren. ETC-prentsa

Beste edozein proba herrikoira zoaz eta lasterketa erdian bakarrik joateko arriskua daukazu, edo **erratz-autoa** atzean duzula, edo pasa ahala zinta kentzen ari zaizkizu "Txarra" zarela agerikoa da, nolabait. ETC-prentsa

Beste edozein proba herrikoira zoaz eta lasterketa erdian bakarrik joateko arriskua daukazu, edo **erratz-autoa** atzean duzula, edo pasa ahala zinta kentzen ari zaizkizu. ETC-prentsa

Azpiko tropeltxoa eta **erratz-autoa** zeruertzean ikusi ere ez dira egiten, ordea. ETC-prentsa

Hain zuzen ere, urtean zehar ibilbide turistikoak egiten dituen tren hori **erratz auto** moduan baliatzen dute beteranoek: nekatuz gero, eseri, eta hurrengo hitzordura trenean joaten dira. ETC-prentsa

Partaideen ezagunak eta ezagunen ezagunak... baita bi kotxe ere, partaide biren aitenak, bata aurrean kokatu zena eta bestea atzean, **erratz-auto** gisa. ETC-literatura, saiakera

Lasterketa ixten zuen Voiture Balai delakoa agertu zen urruntasunean, haur-ipuinetako erraldoi mehatxagarria izango balitz bezala, erretiratzen ziren txirrindulariak irensten zituen **erratz-autoa**. ETC-literatura, saiakera

Erratz-autoa deitzen dute: maldak bezain bihozgabea, errepideak garbitzea du helburu. ETC-literatura, saiakera

Irailaren 27koetarako independentziaren aldeko fronte zabala osatu zuten CDCk eta ERCk, eta CUPek ildo horretan **erratz autoarena** egiteko konpromisoa hartu zuen, ezker bazterrean geratutako independentistak biltzeko. ETC-prentsa

17 ***garabi auto*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Martin eta biok basean geratu ginen, aseguruak bidalitako **garabi-autoari** itxaroten. ETC-literatura, saiakera

"Mate": **Garabi-auto** herdoildua. Hasieran Lightning McQueen zaintzeaz arduratuko da, baina geroago bere lagun-mina bihurtuko da. Traktoreak molestatzea gustuko du. ETC-entziklopedia

18 ***hil auto***

Berehala **hil**-autoan sartu zuten, geroxago Pauera joateko, han baitago departamenduko krematorium bakarra. Daniel Landart

Nik, bat-batean, ez nion **hil**-autoari baizik begiratzen. Daniel Landart

19 ***noranahiko auto***

Noranahiko auto bat bidetik atera zen. Berria - Euskal Herria

Noranahiko autoaren eta autobusaren arteko istripuari buruz, autoaren gidariak bere ibilgailuaren kontrola galdu omen zuela azpimarratu du Foruzaingoak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aldera auto (6); **ari zen auto** (6); **atzo auto** (10); **aurka bonba auto** (6)

auto aparkaleku (6); **auto asko** (21); **auto azpian** (13); **auto bana** (6); **auto barnean** (10); **auto barruan** (49); **auto barrutik** (6); **auto bat bidetik** (6); **auto bat errepidetik** (22); **auto bat gelditu** (7); **auto bat irauli** (7); **auto bat jo** (14); **auto bat leherrarazi** (26); **auto bat lehertu** (19); **auto bat zartarazi** (19); **auto batean sartu** (13); **auto batean zihoazen** (7); **auto batek elkar** (10); **auto batek eztanda** (37); **auto batek harrapatu** (26); **auto batek harrapatuta** (38); **auto batek jo** (14); **auto batekin** (19); **auto bateko** (7); **auto baten barruan** (14); **auto baten bidez** (6); **auto baten kontra** (16); **auto batera** (6); **auto batetik** (19); **auto bati** (17); **auto batzu** (6); **auto batzuen** (6); **auto batzuk** (10); **auto beltz** (23); **auto berean** (8); **auto berri** (16); **auto berria** (23); **auto berriak** (13); **auto bi** (6); **auto bidez** (6); **auto edo** (8); **auto egin** (6); **auto eredu** (7); **auto erre zituzten** (10); **auto eta kamiun** (7); **auto gehiago** (15); **auto gidari bat** (7); **auto gidaria** (23); **auto gidariak** (14); **auto gidariek** (8); **auto gorri** (11); **auto gutxi** (12); **auto gutxiago egin** (9); **auto guztiak** (9); **auto handi** (10); **auto hartan** (6); **auto hau** (7); **auto hori** (12); **auto horiek** (6); **auto horrek** (9); **auto horren** (7); **auto hura** (6); **auto ilara handiak** (8); **auto ilara luzeak** (44); **auto ilarak eragin** (7); **auto ilarak izan** (8); **auto ilarak sortu** (34); **auto ilaran** (6); **auto ilaren** (6); **auto istripu bat** (11); **auto istripu batean** (50); **auto istripu baten** (18); **auto istripu izan** (10); **auto istripu larria** (8); **auto istripua izan** (55); **auto istripuak** (16); **auto istripuan hil** (14); **auto istripuaren** (6); **auto istripuen** (13); **auto istripuz** (6); **auto ixtripu** (6); **auto karabana egin** (6); **auto kopurua** (6); **auto lasterketak** (6); **auto pilaketak** (9); **auto produkzioa** (6); **auto salmentak** (6); **auto stop egiten** (10); **auto zahar** (9); **auto zuri** (8)

baina auto (17); **baino auto** (7); **baita auto** (6); **batean auto** (11); **batek auto** (10); **batek bonba auto** (9); **batek eta auto** (13); **bere auto** (16); **bertze auto** (6); **beste auto bat** (23); **beste auto batek** (9); **beste bonba auto** (18); **bi auto istriputan** (6); **bi bonba auto** (14); **bi lagunek auto** (6); **bigarren auto** (6); **bonba auto bat** (77); **bonba auto batek** (53); **bonba auto baten** (15); **bonba auto leherrarazi** (7); **bonba auto lehertu** (8); **bost auto** (8); **den auto** (10); **dira auto** (15); **diren auto** (15); **donostia auto** (7); **du auto** (13); **duen auto** (11); **dute auto** (10); **duten auto** (11); **edo auto** (11); **ehun auto** (6); **eragindako auto** (6); **ere auto** (13); **ertzaintzaren auto** (6); **formula auto** (7); **gertatutako auto istripuan** (6); **hainbat auto** (14); **hil da auto** (11); **hiru auto** (13); **inguruko auto ilarak** (6); **izandako auto istripu** (21); **izandako auto istripuan** (17); **izandako auto istripuetan** (14); **kilometro inguruko auto** (7); **kilometroko auto ilarak** (26); **lagunek auto istripua** (10); **lau auto** (10); **markako auto** (7); **milioi auto saldu** (6); **orain auto** (8); **polizia auto bat** (7); **poliziaren auto bat** (7); **senideek auto istripua** (10); **ustez auto** (6); **zegoen auto** (11); **zen auto batean** (6); **zen eta auto** (7); **zetorren auto** (6); **zeuden auto** (6); **zihoan auto** (8); **ziren auto** (32); **zituen auto** (6); **zuen auto** (24); **zuten auto** (13)

aurreko autoa (6); **autoa aparkatu** (11); **autoa aurkitu** (6); **autoa bere** (9); **autoa berriro** (7); **autoa bidetik atera** (9); **autoa da** (11); **autoa ere** (15); **autoa erre** (6); **autoa errepidetik atera** (18); **autoa errepidetik irten** (6); **autoa ez** (24); **autoa geldiarazi** (9); **autoa geratu** (7); **autoa gidatu** (7); **autoa gidatzeko** (7); **autoa gidatzen** (22); **autoa harturik** (7); **autoa hartzen** (6); **autoa ikusi** (9); **autoa izan** (6); **autoa jo zuen** (7); **autoa kaleratu** (8); **autoa martxan jarri** (12); **autoa oso** (6); **autoa zegoen** (6); **auzipetze autoa** (23); **baina autoa** (17); **batean autoa** (7); **baten autoa** (9); **bere autoa** (29); **bonba autoa** (29); **da autoa** (12); **den autoa** (6); **du autoa** (18); **duen autoa** (11); **edo autoa** (10); **gidatzen zuen autoa** (12); **gure autoa** (10); **haren autoa** (10); **kaleratutako autoa** (6); **nire autoa** (10); **nuen autoa** (14); **zegoen autoa** (8); **zen autoa** (22); **zeraman autoa** (6); **zihoan autoa** (7); **zure autoa** (6); **zuten autoa** (16)

autoak beste (9); **autoak dio** (6); **autoak dioenez** (12); **autoak egiten** (7); **autoak ere** (11); **autoak errepidetik** (7); **autoak ez du** (8); **autoak kalte handiak** (14); **autoak kamioi bat** (8); **auzipetze autoak** (6); **baina autoak** (20); **bonba autoak** (20); **dio autoak** (19); **dira autoak** (7); **diren autoak** (9); **du autoak** (12); **ere autoak** (8); **gidatzen zuen autoak** (12); **kaleratutako autoak** (11); **zihoazen autoak** (6); **ziren autoak** (9); **zituen autoak** (9); **zituzten autoak** (8); **zuen autoak kamioi** (6)

atzoko autoan (7); **autoan bonba bat** (9); **autoan dioenez** (10); **autoan egin** (6); **autoan eraman** (14); **autoan gindoazela** (6); **autoan joan** (6); **autoan sartu zen** (11); **autoan sartzen** (13); **autoan zihoan** (14); **autoan zihoazen bi** (7); **auzipetze autoan** (7); **baten autoan** (11); **bere autoan** (35); **beren autoan** (6); **beste autoan** (9); **du autoan** (7); **edo autoan** (6); **kaleratutako autoan** (14); **nire autoan** (10); **plazaratutako autoan** (6); **zen autoan** (6); **zuen autoan** (7)

bere autoarekin (10); **zen autoarekin** (7)

autoaren arabera (11); **autoaren atea** (8); **autoaren atzealdean** (10); **autoaren atzeko** (13); **autoaren atzetik** (6); **autoaren aurreko** (7); **autoaren azpian** (8); **autoaren barnean** (9); **autoaren barruan** (22); **autoaren bila** (6); **autoaren gidaria** (11); **autoaren gidariak** (6); **autoaren jabeak** (6); **autoaren kontra** (18); **autoaren kontrola galdu** (20); **autoaren matrikula** (7); **autoaren ondoan** (12); **baten autoaren** (6); **bere autoaren** (15); **da autoaren** (6); **polo autoaren** (8); **zen autoaren** (8); **zuen autoaren** (13)

autoek ez (7)

autoen abiadura (7); **autoen artean** (13); **autoen artetik** (8); **autoen zarata** (7); **bi autoen** (8); **diren autoen** (7)

autok aurrez aurre (8); **autok elkar jo** (60); **autok elkarren** (6); **bi autok aurrez** (8); **bi autok elkar** (32); **bonba autok** (9); **hiru autok elkar** (14); **lau autok** (6)

autoko atea (11); **autoko gidaria** (22); **autoko gidariak** (11); **beste autoko** (6)

autora hurbildu (7); **autora igo** (6); **autora itzuli** (10); **autora joan** (8); **autora sartu** (9)

autoren bat (11)

autorik ez (21); **autorik gabe** (8); **autorik gabeko eguna** (6)

bi autotan (12)

autotik atera zen (7); **autotik jaitsi zen** (8); **autotik kanpo** (7); **zen autotik** (10)

autoz beterik (7); **autoz egin** (9); **autoz joan** (9); **bonba autoz egindako** (10); **da autoz** (6)

---

auto[2] 1 *iz* agiria, idazkia.

Eta **auto** sakramental iduriko hartan bazirudien, han geunden moduan, ezen gurutzatuen artillero konpainia bat osatzen genuela, eta konpainia hark sultanaren jauregia hartu nahi zuela, atakea erretaguardiatik jorik eta handik oldarturik. Joan Mari Irigoien

Iragarkiak: **autoak**, telefono konpainiak, kirol egunkariak... eta abar. Pello Salaburu

2002-06-13: Nafarroako presidente Miguel Sanzek Auzitegi Nazionalaren **autoa** ezagutarazten du, zeinak urtegia erabat betetzeko baimena ematen baitu. Edurne Elizondo

Era berean, "tamalgarritzat" jo zuen Juan Mari Atutxa Eusko Legebiltzarreko presidenteak "begirunerik eza" leporatzea Auzitegi Gorenari, **autoa** hiru hilabeteko atzerapenarekin bidali izanagatik. Berria - Euskal Herria

Oroigarri harrizko eta hitzezko horiez gain, ba omen ziren kontatutako gertakizunen oroimen-piztaile ziren hainbat errolda eta heretikoen aurka egindako **autoaren** agiriak Durangoko elizan, baina, lehen esan bezala, haien arrastorik gera ez zedin interes berezia zuen hainbat familiak eskatuta erre ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bost orriko **autoa** idatzi zuen honek, eta irakurri dutenek esatera, idatziak ez omen ditu inondik inora jasotzen aurreko egunetan hainbat hedabidek aireratu zituzten "ustezko helburuak". Iñigo Aranbarri

2 *auto sakramental* eukaristiaren gorazarrez onduriko antzerki lan laburra, XV. mendekoa.

Auto Sakramentalak edo mirakulu-antzerkiak erdi aroko dramak ziren; haietan Bibliako pasarteak edo santu edo martirien bizitzetan oinarritutako gertaerak taularatzen ziren. Xabier Olarra

Aurreko batean ere, erredakziokook **auto sakramental** baten itxurako festa eszenifikatu genuenean, antzeko hitzak esan zituen Adak. Anjel Lertxundi

-Errusiarrek katedralean **auto sakramentala** eman ziguten, ez ahaztu hor. Edorta Jimenez

3 *auzipetze auto*

Bestalde, badaezpadako neurrien berri ematen duen idazkia da atzo goizaldean kaleratutakoa; ez da **auzipetze autoa**. Berria - Harian

Iragan urtarrilaren 24an jaso zuten Marcosek eta Basabek **auzipetze autoa**. Berria - Kultura

Espainiako Auzitegi Nazionaleko iturriek berri agentziei esandakoaren arabera, inputazio berri horien osteko berehalako urratsa, **auzipetze autoa** kaleratzea izango da. Berria - Euskal Herria

Bihar, goizeko 10: 00etan egon behar dute Egunkaria auzian auzipetutako lagunek Espainiako Auzitegi Nazionalean, **auzipetze autoa** jasotzeko. Berria - Euskal Herria

4 *fede auto*

Lisboan azken **fede** -autoan erre zuten hemezortzi urteko neska judutar bat. Iñaki Iñurrieta

5 *prozesatze-auto* *(corpusean ez dago; ETCn **49** agerraldi)*

Joaquin, gustatuko litzaiguke Batzorde Diziplinarioak irakurtzea Entzutegi Nazionalean, eta Entzute Probintzial batzuetan, dauden **prozesatze autoak**, sumarioak eta epaiak. ETC-prentsa

Bi urteotan, lekualdatze batzuk izan ditu Enparantzak: Navalcarnerora eta, geroago, Alcalara eraman zuten **prozesatze autoaren** berri eman ziotenean. ETC-prentsa

Goreneko epaileak **prozesatze autoa** erredaktatu nahi du lehenik, eta gero eskatu nazioarteko atxilotze agindua. ETC-prentsa

Merezi du irakurraldi bat Pablo Llarena Espainiako Auzitegi Goreneko epailearen **prozesatze autoak**. ETC-prentsa

Sumarioan kriminaltasunaren zentzuzko zantzua agertzen denean, **prozesatze-autoa** ematen da, eta horrek inputazio formala dakar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Administrazioak ez duuko egitea onartzerik, funtzionarioaren aurka diziplina-espediente bat zabalikbadago, ezta haren aurkako **prozesatze-autoa** edo ahozko juizioa zabaltzekoautoa onartu bada. ETC-zientzia, zuzenbidea

Betiere, erabaki hori hartuko da espetxeratze-autoa, bermepeko askatasunerako autoa, **prozesatze-autoa** edo prozedura laburtuan ahozko epaiketa irekitzeko autoa eman denean. ETC-zientzia, zuzenbidea

2002ko urriaren 29an Baltasar Garzonek **prozesatze-autoa** eman zuen, fiskalak irailaren 25ean egindako prozesatze eskaerari jarraiki. ETC-entziklopedia

Behin horiek eginda, bi aukera izaten dira: kasua artxibatzea edota, kriminalitate zantzuak egonez gero, pertsona horrekiko **prozesatze-autoa** onartzea, eta hitzezko judizioa egitea. ETC-entziklopedia

6 *prozesatzeko auto*

Orain arte, ikerketa ez da izan ez berehala eta ez sakon eginikoa, eta laster da hastekoa baina zehaztu gabe dago noiz ahozko auzi saioa, **prozesatzeko autoaren** kontrako apelazio helegiteen inguruan. Berria - Harian

---

autoafirmazio *iz* norberaren ideia, botere edota gaitasunen berrestea edo indartzea.

Koitoak, beraz, harrezkeroztik **autoafirmazio**, nagusikeria eta botere konnotazioak hartu zituen. Luis Elberdin

Batzuetan ez dugu jakiten zer dakigun edo buruan zer darabilgun, idatzita ikusten ez dugun arte, eta jakiteko modu hori atsegin-iturri bihurtzen zaigu eta baita **autoafirmazio** era bat ere. Ana Urkiza

Katalandarren izaera nazionala **autoafirmazioan** oinarritzen da, gurea anti-espainolismoan Berria - Euskal Herria

---

autoanalisi *iz* nork bere burua analizatzea.

Barne munduan, **autoanalisi** etengabea dago, gehienetan besteen ispiluaren bidez egina. Berria - Kultura

Argi ulertu dut neure **autoanalisiaren** zati bat dela, neure aitaren heriotzaren, hau da, gizaki baten bizitzako gertakari garrantzitsuenaren, galera lazgarrienaren, aurreko erreakzioa. Joxan Elosegi

---

autoantolaketa *(corpusean ez dago; ETCn **86** agerraldi, horietatik **51** azken sei urteetan) iz* norberak bere kabuz egindako antolaketa. ik **autoantolakuntza**; **autoeraketa**.

Sailkapen horri jarraituz Euskal Herriko feminismoa britainiarraren tankerakoa izan da, tokian tokiko **autoantolaketa** indartzen saiatu dena eta emakumeek berek kudeatutako zerbitzuen sorrerara bideratua. ETC-literatura, saiakera

Kognizioaren irudirik egokiena berritasunaren aurreko **autoantolaketa** eta auto-estabilizazioa da. ETC-literatura, saiakera

Ikasten ari naiz gure herriaren bizi-nahiarekin, gure herriaren **autoantolaketa** kulturalarekin. ETC-literatura, saiakera

Jon Sarasuak dioen moduan, autoeraketaren kontzeptuak bere baitan bil ditzake autodeterminazioa, autogobernua, **autoantolaketa** eta autokudeaketa edo autogestioa. ETC-literatura, saiakera

Horren ondorioz, adibidez, ez da egongo **autoantolaketarako** aukerarik, ez akademia alorrean ez eta kudeaketarenean ere. ETC-prentsa

Gehien harritu ninduena izan zen **autoantolaketa** horretan zer garbi zeuden landu beharreko ildo nagusiak: transmisioa, sustapena eta ikerkuntza. ETC-prentsa

Egia da hemen autoekoizpen indartsua dugula, **autoantolaketarako** kultura bat ere badugulako. ETC-prentsa

Estatuen eta giza harreman kapitalisten balkanizazioa ona da: **autoantolaketa** eta kultura aniztasuna da, eta haustura bat gizarte kapitalistarekin. ETC-prentsa

Tsunamiak beste maila bateko mugimendua ordezkatzen du orain: buruzagirik gabeko **autoantolaketa** bat da ia. ETC-prentsa

Bestalde, aipatzekoa da lurralde sozialistek, hondamendi natural baten aurrean, **autoantolaketa** era eta prebentzio-sistema oso interesgarriak sortu zituztela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta hori lortzeko modurik eraginkor, adimentsu eta, are gehiago, ordenatuena (autoarautua), hain zuzen ere, **autoantolaketa** dugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Foru-aldundiek eta udalek, bakoitzak bere lurraldearen eremuan, eta beren kasa edo beste batzuekin elkar hartuta, **autoantolaketarako** ahalmenaz dihardutela, gizarte-zerbitzuen kontseilua eratuko dituzte, nork bere eskumen-eremuko gizarte-zerbitzuei buruzko kontsultarako eta parte-hartzerako organo gisa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Esan izan dugu eta, jaien eremuari dagokionez, programazioa aurrera eramatearekin batera herrigintza, **autoantolaketa** eta norbanako zein taldeen arteko elkarrekintza sustatzen ari garelakoan gaude. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oro har, **autoantolaketaren** eta federazioaren aldeko jarrera du anarkismoak eta, hori dela eta, erakunde indartsu eta zurrunak baino, talde dinamiko eta aldakorrak hobetsi ohi dituzte. ETC-entziklopedia

Mugaz haraindiko lankidetza erakundea dute eratua, eta tokiko **autoantolaketa** du xedetzat. ETC-entziklopedia

---

autoantolakuntza *iz* norberak bere kabuz egindako antolakuntza. ik **autogestio**; **autoeraketa**; **autokudeaketa**.

Mugimendu autonomoaren balio batzuk gorde direla iruditzen zaizu: **autoantolakuntza**, hierarkizazioaren aurkako jarrera...? Berria - Kultura

AHTrik ez, **autoantolakuntza**! Ieloarekin antolatu du bederatzigarren kanpaldia AHTren Aurkako Asanbleak. Berria - Euskal Herria

---

autoasfixia *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi; soilik **autoasfixia erotiko** hitz elkarketan erabiltzen da)* **1** *iz* norberak bere buruari eragindako asfixia.

2 *autoasfixia erotiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Bere buruari edo bikotekideari arnasa hartzea galaraztean datza, burua plastikoz edo latexez estaliz edo itotzera joz eta arnasbideak oztopatuz. Sexu-praktika arriskutsua da, heriotza eragin duelako. Pertsona bakar batek egiten duenean, **autoasfixia erotikoa** diote. "**Autoasfixia erotikoa**" terminoa 1991n sortu zuten Estatu Batuetako aldizkari zientifiko batean. ETC-entziklopedia

---

autoazterketa *iz* norberak bere buruaz egindako azterketa.

Autoazterketa itogarri samarra ezarri nion (nahiz eta ez zen oso bestelakoa berak bere buruari egunero ezartzen zionaren aldean: autista ez den mundu batean autismoa nola bizi ulertzeko eginahalean aritzen baita beti). Xabier Olarra

Autoazterketa soziologikoa duela idatzi dio Pierre Bourdieuk Esquisse pour une auto-analyse (**Autoazterketa** baterako zirriborroa) liburuaren aitzinsolasean Berria - Kultura

Bai, nik egin behar izan dudan **autoazterketaren** ondorio izango da, niri asko pisatzen didalako Berria - Kultura

---

autobabes *(corpusean ez dago; ETCn **212** agerraldi)* *iz* norbere buruaren babesa.

Ez luke nahi itxurak intelektua edo mezua estaltzerik, eta konturatzen da diskrezioaren lanketa erabili duela **autobabeserako**. ETC-literatura, saiakera

Oraindik etsituki salbatu nahi duzu agian, baina senaren, edo harrotasunaren, edo **autobabesaren** mailaren batean, edariari dion debozioak sakonago kolpatzen zaitu, baita modu pertsonalagoan ere. ETC-literatura, saiakera

Ez zitzaidan bat ere kostatzen bertsio paraleloa garatzea ezen saiheskera hura (belarri ondo erneekin!, ulertu nahi nuen) **autobabes** subtil bati zegokiola, begirada direktoak sentiera grinatsuago bat sala zezan beldurrez. ETC-literatura, saiakera

Hots, gizaberearen egoera bizi borrokan jada aspaldian oso abantailatsua dela, eta engoitik giza espeziearen arta, **autobabeseko** edo erasoko mekanismoei adina edo gehiago arteari, mitoei, musikari, dantzari dagoela adi. ETC-literatura, saiakera

Bigarren udaltzainari, berriz, **autobabeserako** esprai batekin eraso egin ziotela diote berri agentziek, eta erasoaren ondoren molotov koktelak jaurti zituztela udaltzainen auto baten eta zenbait kutxazainen aurka. ETC-prentsa

Horrez gain, nahi duten emakumeei **autobabeserako** ikastaro bat ematen diete. ETC-prentsa

Halakorik pentsatzen duenak bere buruari galdetu beharko lioke zergatik ari diren Frantzia eta antzeko potentziak **autobabes** neurriak hartzen, beren kultura eta hizkuntza globalizaziotik salbatzearren. ETC-prentsa

Horren haritik jarraituko dutela gogorarazi du, eta ikasturte hasieran **Autobabeserako** EAEko Araua aurkezten hasi dira 688 ikastetxe publikoen zuzendarien aurrean. ETC-prentsa

Autobabes moduan jaio zen El Paso: helburua une hartan Espainian gertatzen ari ziren gauzarik interesgarrienak bideratzea zen. ETC-prentsa

Ezaugarri horiek (langilearentzako izaera babeslea eta **autobabes** kolektiboa) Lan Zuzenbidea Zuzenbideko beste adar guztien aurrean bereizten dute, eta aplikazioan ere nabarmentzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edonola ere, **autobabeserako** erreakzioa dela ematen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tice-ren arabera, autoestimu baxuko pertsonek **autobabes**-estrategiak erabiliko lituzkete autogoratze-estrategiak baino gehiago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Pertsonek **autobabesarekin** edo familiak eskaintzen dizkien tresnekin ezin badituzte beren beharrizanak bete, orduan bakarrik jasoko lukete Estatuaren laguntza. ETC-zientzia, zuzenbidea

Agintariek **autobabeseko** talde edo milizien antolakuntza bultzatu zuten eta 200.000 gizon armatu zituzten, eta hori, kasu askotan, indarkeria areagotu zuen faktore bat izan zen. ETC-entziklopedia

Armadatik bananduriko **autobabes** militarrerako erakundea zen, batez ere gerra garaietarako sortua. ETC-entziklopedia

---

autobabeste *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* norbere burua babestea.

Ihardespen gisa organismo horrek defentsa-organoak garatu ditu, zeinek **autobabeste**-lan kantitate handi bat egiten baitute. ETC-literatura, saiakera

Sometentaren aurrekariak "Sagramental" izeneko Erdi Aroa Erdi Aroko **autobabesterako** taldeetan aurki daitezke, "Princeps namque" izeneko Kataluniako usadioetan aipatzen direnak. ETC-entziklopedia

---

autobabestu, autobabes(tu), autobabesten *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* **1** da *ad* norbere burua babestu.

Jakina, ni ez naiz ez bertsolari, ez etnografo, ez dialektologo - **autobabestu** naiz, zirikada aurre-leunduz-. ETC-literatura, saiakera

"Globalizazio horien aurkako erreakzio gisa -askotan munduko eskualdeen artean desberdintasunak sortzen dituzten globalizazioak, bestalde- uniformitateari gogor egiteko eta nortasuna ez galtzeko **autobabestu** nahia azaltzen da edonon. ETC-literatura, saiakera

2 (era burutua izenondo gisa)

Eta familia mobilizazioaren garrantziaz ere entzungo ditugu analisiak: familia eta komunitate txiki trinko eta **autobabestuak** zonbien kontra armatu balira bezala. ETC-prentsa

autobalio *(corpusean ez dago; ETCn **190** agerraldi)* *iz* aljebran, balio propioa duen bektorea.

Analisi partzialeko lehen **autobalioak**, honako hauek dira: 0,6576 lehen multzoaren kasuan eta 0,37 bigarrenaren kasuan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, aipatutako ekuazio diferentzial linealen sistema hori ebazteko, egoera-matrizearen **autobalioak** eta autobektoreak nola erabiltzen diren ere azaltzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

"Kuantizazioa **autobalio**-problema gisa" artikulua 1926ko urtarrilaren 27an jaso zuen Annalen der Physik aldizkariak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala, matematikari batzuek eigenbalio edo **autobalio** terminoak erabiltzen dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eta egonkortasuna ziurtatzeko, A=MK matrizearen **autobalioak** EDA askatzeko darabilgun zenbakizko metodoaren egonkortasun-eremuan egon beharko dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, atomoa deskribatzeko, denboraren independientea den Schrädinger-en ekuazioa ebatzi behar dugu autofuntzio (atomoa deskribatzen duen funtzioa) eta **autobalioak** (atomoaren energia) lortzeko. ETC-entziklopedia

Matrize diagonalizagarri baten kasuan, logaritmoa ondo definituta egon behar du matrizearen **autobalio** bakoitzarentzat. Kasu horretan, matrizearen logaritmoa definituta dago eta **autobalio** positibodun matrize baten logaritmoa beste matrize erreal bat izango da. ETC-entziklopedia

Analisi matematiko modernoan, zenbaki errealen sistemaren ezaugarri espektralak erabiltzen definitzen da, periodo baten **autobalio** gisa, geometriari erreferentziarik egin gabe. ETC-entziklopedia

---

autobete, autobetetzen *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)* **1** da *ad* bere horretan besterik gabe bete.

Autobetetzen diren aurresateen munduan bizi denez, besteek baztertu egingo dutela aurresaten du, eta besteek baztertu aurretik, bera aldentzen da besteengandik. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 (era burutua izenondo gisa)

Horri, batzuetan, "profezia **autobetea**" esaten zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *autobetetzen den profezia* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Robert K. Merton soziologo estatubatuarrak sistematizatu zuen kontzeptu hau "Social Theory and Social Structure" liburuan. Soziologo honek horrela definitzen du **autobetetzen den profezia**: ETC-entziklopedia

Autobetetzen den profeziaren arriskua dugu. ETC-prentsa

Autobetetzen den profezia bat izan zen Wagner: teorizatu zuen Shakespeareren eta Beethovenen konbinazioa izango zela etorkizuneko artista, eta horretan bilakatu zuen bere burua gero4. ETC-literatura, saiakera

Autobetetzen den profezia bat izan zen. ETC-literatura, saiakera

4 *iragarpen autobete* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Iragarpen autobetea iragarpen bera formulatzearen eraginez betetzen den iragarpena da. ETC-entziklopedia

---

autobia *iz* Espainiako errepide zabala, bi noranzkoak bereizirik dituena, baina bidegurutzeak izan ditzakeena. ik **autobide**; **autopista**.

Autobian elurrik ez eta, hala ere normalean baino trafiko gutxiago zegoen. Pablo Sastre

Autobiako lanak direla eta, semaforoa noiz berdatuko zai, bi harkaitzei begira kotxean nagoela, Salkindari haren gaztelua, haren ibilerak, ekarri dizkit gogora, gibel aldeko lilura ilun batek. Patziku Perurena

Autobia edo ingurabide bat pasatzen duk handik hurbil. Iban Zaldua

Hortik **autobiaren** istorioan sartu nintzen, eta ondoren etorri zen zinegotzi izatearena. Berria - Euskal Herria

---

autobide **1** *iz* ibilgailu motordunentzako errepide zabala, babestua, bidegurutzerik gabekoa eta bi noranzkoak bereizirik dituena. ik **autobia**; **autopista**.

Beren zera gurearen ondoan aparkatua zitean **autobideko** zerbitzugunean. Aingeru Epaltza

Dena dela, erakundeek beste bi bide hartzea proposatu dute, inguru horretan **autobideko** eskuineko bidea ere itxita dagoelako. Berria - Euskal Herria

Berak ere buruari eragiten dio, **autobidera** begiratzen du eta gero niri berriz. Koro Navarro

Agian horregatik sortzen dira azkenaldi honetan horrenbeste erretentzio gure **autobideetan**. Bernardo Atxaga

Zangoaren luzera eta makurdura lurrera egokitu ahal izateak kolpe-motelgailuaren beharra saihesten du, ibilgailu gurpildunetan ez bezala, zeren ibilgailu gurpildunek motelgailua behar baitute **autobideetan** ere. Irene Aldasoro

Hamar minutu geroago iltzaturiko ateak behartu, autoan sartu eta han zihoazen, ziztu bizian **autobiderantz**. Iñaki Mendiguren

Bai, bulta huntan diote **autobidea** largatu behar dela bainan orai arte ez dute garbitasun handirik emaiten xuxen nori zonbat lur kenduko duten eta holako. Herria

Handixko ere iruditzen zitzaion ordaindu beharreko bidesaria gaixoari, baina hiru hilabete eskas falta ziren urtea bukatzeko, eta **autobidetik** atera eta kamio arrunta hartu ahal izango zuela orduan, gogoratu zuen. Imanol Zurutuza

Harekin mintzo den guziz askatasun haize bat senditzen du begi-ninia perekatzen diola, **autobidean** motoz kaskorik gabe balebil bezala. Eneko Bidegain

Biharko etapan **autobide** berritik inola ere ez sartzeko esan dit, oso arriskutsua dela otsoen erruz. Jon Arretxe

Taxia hondartza bazterretik Barranquilla hirian etorri da, gero **autobidera** sartu eta sei zazpi kilometro barru irteteko. Joseba Sarrionandia

2 *ordainpeko autobide* *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Eibar-Gasteiz **ordainpeko autobidearen** azken trazatuan Diputazioak egindako aldaketak salatu dituzte Eskoriatzako kaltetuen elkartekoek eta Udal ordezkariek. ETC-prentsa

Ordainpeko autobideak ez diren errepideetan ibiltzeagatik kanon bat kobratzea aztertzen dihardu Gipuzkoako Diputazioak. ETC-prentsa

Kanpora joan eta **ordainpeko autobidea** mozteagatik terrorismoz salatzen ari direla azalduz gero, ez dute sinetsiko. ETC-prentsa

Milaka gidarik erabiltzen dute, egunero, Bilbo eta Donostia lotzen dituen AP-8 **ordainpeko autobidea**, baina denek ez dute berdin ordaintzen. ETC-prentsa

Bestalde, **ordainpeko autobide** eta tuneletan jaiegunetan egoten den langile kopuru berdinak lan egin beharko du, errepideen mantentze zerbitzuetan bezala. ETC-prentsa

Bizkaiko Foru Aldundiak **ordainpeko autobideetako** bidesariak arautzeko eredu berri bat sortu nahi du. ETC-prentsa

Saihesbide, **ordainpeko autobide**, autobide edo erradial gehiago eginagatik, ez da gutxituko errepideetako auto pilaketa arriskua. ETC-prentsa

A-8ko trafikoa Bilboko metropolia osatzen duten herriguneetatik ateratzea du helburu **ordainpeko autobide** horrek. ETC-prentsa

Lan horiek desjabetze-kostu handia izan zuten, eta, horiei esker, ekimen pribatuari eman zitzaion norabide geografiko guztietako **ordainpeko autobideen** emakidak lortzeko aukera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gaur egun ere, AP-1 **ordainpeko autobideak** mendatea zeharkatzen du, Arlabango tunelaren bidez. ETC-entziklopedia

Supersur Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen duen **ordainpeko autobidea** da. ETC-entziklopedia

Ordainpeko autobide sistematik kanpoko errepide lokal batetik oinez iritsi daiteke. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

autobide bat (7); **autobide baten** (4); **autobide bazter hortan** (3); **autobide bazterrean** (3); **autobide bihurtzeko** (3); **autobide horietan** (3); **autobide horren** (3); **autobide proiektuaren** (3); **da autobide** (3); **dira kostaldeko autobide** (3); **ere autobide** (3); **kostaldeko autobide hori** (3); **kostaldeko autobide hortan** (4)

autobidea ere (3); **autobidea eta n** (3); **autobidea hartu** (3); **autobidea itxi** (4); **autobidea itxita** (3); **autobidea kudeatzen duen** (4); **autobidea largatu behar** (3); **autobidea zabaltzeko** (5); **da autobidea** (3); **duen autobidea** (3); **eibar gasteiz autobidea** (4); **zuten autobidea** (3)

autobidean bertan (4); **autobidean ere** (9); **autobidean gertatutako** (4); **autobidean izan zen** (3); **autobidean izandako istripuan** (4); **autobidean sartu** (4); **da autobidean** (4); **galkadurak autobidean** (3); **nafarroako autobidean** (4)

autobidearen arabako zatia (3); **autobidearen bazterrean** (3); **autobidearen bizkaiko** (3); **autobidearen hegi hortan** (3); **autobidearen hegiz hegi** (3); **autobidearen inguruko** (4); **autobidearen kontra** (3); **autobidearen kontrako** (3); **autobidearen ondoan** (3); **autobidearen proiektuak** (3); **du autobidearen** (3)

autobideaz arduratzen direnek (3)

autobideetako ordainlekuetan (3)

autobideko beste (3); **autobideko irteeraren** (3); **autobideko lapurren** (3); **autobideko obrak** (3); **autobideko zerbitzugunean** (3); **eibar gasteiz autobideko** (4)

autobidetik atera (5); **autobidetik hurbil** (3)

---

autobiografia *iz* norbaitek bere buruaz egiten duen biografia.

Nolanahi ere, Borrokaren gorrian bere **autobiografiako** hizkera nahiz ikuspuntua nahiz kontatutakoa bizi-biziak dira; liburua lauhazka dabilkizu hasi eta buka, protagonista bera bezalaxe. Markos Zapiain

Biografia askotan, eta agian gehiago **autobiografietan**, egiaren alde bat agertu ohi da argi handiagoz nabarmenduta, egiaren beste hainbat zoko ilunpean geratzen diren bitartean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Menyhért Lakatosek bere **autobiografia** nobelatuan romungoroak (Hungariako ijitoak), jornalaritzara joanda, korta handietan zelan biltzen, zelan kantatzen, zelan sexu jotzen zuten kontatzen digu. Pablo Sastre

Subjektuaren definizio finkoarekin hausten du konbertsioaren egiturak eta horrela **autobiografiarako** eredutzat balio die. Joseba Zulaika

Autobiografia bat idaztearekin mehatxatu ninduen. Joxean Agirre

Baina, guztiarekin ere, berea ez zen **Autobiografiaren** aurka kontrajartzen zen beste **autobiografia** bat, autokritikoa ere bazenez. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autobiografia bat (10); **bere autobiografia** (9)

bere autobiografian (5)

---

autobiografiko *izond* autobiografia-izaera duena.

Obra guztiak dira **autobiografikoak** hein batean. Ana Urkiza

Eleberri bat, doi bat **autobiografikoa**, Laxaltarren eta zabalagoki hango euskaldunen gora-beherak kondatzen dauzkiguna. Herria

Oroimen mota berri hura esperientziazkoa edo **autobiografikoa** zen batik bat, irudi bakoitza bere testuinguru eta atxikimenduarekin baitzetorkion. Xabier Olarra

Eta liburu guztiak **autobiografikoak** badira ere, autore gutxi izango dira Barriek bezain lan-sorta **autobiografikoa** idatzi dutenak. Julen Gabiria

Ondotik, manera **autobiografikoago** batean, ipar-mendebalderantz itzuliko zen, lur berrietara buruz: ametsetarik bizi izanikakoen kontakizunera, baina beti Terra incognita eta mundu aurkitu beharraren argitan. Aurelia Arkotxa

---

autobonba ikus **auto 5**.

---

autobus **1** *iz* bidaiari asko garraia ditzakeen ibilgailua.

Eguerdia iristen denean, **autobus** baten atzeko plataforman egongo haiz, eta han zenbait bidaiari pilaturen artean egongo den gaztetxo barregarri bati erreparatuko diok: lepo eskeletikoa eta xingolarik ez feltrozko kapelan. Xabier Olarra

Bidean noala iskanbilak larritu edo egoera asko okertzen bada, **autobus** baten sartu eta ziztu bizian itzuliko naiz Istanbulera. Jon Arretxe

Ene haur denborako eritasunekin eta ene bronxita edo bronkitis madarikatu honekin, ba beti, edo treinean, edo **autobusean** edo... autoa hartzen dutalarik, beti zerbait gertatzen zait. Menane Oxandabaratz

Gu kanpoan ginen, atarian, **autobusera** joateko zain, txukun-txukun jantzita. Jon Maia

Amandinekin, aldiz, arratsalde osoan **autobusez** ibili ginen hara eta hona, helbururik gabe, eta horrela, jauregi, monumentu eta saltegi espantagarriak ikusi genituen. Daniel Landart

-Nik, zure lekuan, **autobus** bat hartuko nuke -esan nion atzeko aldetik ateratzen ari ginen bitartean. Fernando Rey

Autobusa hartzen dut, eta inguruko auzoak egindakoan, beste hiri batera joaten naiz. Koro Navarro

Nire esker ona zor izango diot bizitza osoan, **autobus** baten azpira erortzeko arriskuan zegoen amona ilezuri hark Supermani bezala. Anjel Lertxundi

Serumaren poltsa eusteko oin metalezkoa tatarrazka zeramala, ematen zuen **autobuseko** barrari helduta zihoala danbalaka. Hasier Etxeberria

2 *autobus bonu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Autobus bonua, ordainketa partekatua eta ez-udako bidaiak merkatzen dizkigute, baina pentsio normalak eta zerbitzu publikoak jarri beharko lizkigukete, Kapitalak gure elbarritasunen bizkar negoziorik egin gabe: errentagarriagoa zaie gu kontentu eta aseta edukitzea goxokiekin, gu gure eskubideak aldarrikatzea baino. ETC-prentsa

Garraio publikoan, bonua (**autobus bonua**, metro bonua,...), hainbat alditan garraio publikoa erabiltzeko aukera ematen duen txartela (ikus garraio publikoaren tarifikazioa). ETC-entziklopedia

3 *autobus geltoki*

Zeremonia horretan pentsatuz egin nuen **autobus geltokirainoko** bide osoa, amorruz eta lotsa moduko batez. Joseba Urteaga

Autobus geltoki baten ondoan, zubi bat zeharkatzen ari zela, gizaseme bat ikusi zuen binilozko disko sorta bat ibaira botatzen. Harkaitz Cano

Tren-geltoki, **autobus-geltoki** eta horrelako leku jendetsuetan egin ohi zituen ezagutza berriak, eta hori lanak agintzen ziolako. Anton Garikano

Martinek aterkia ireki eta **autobus geltokiraino** lagundu zuen irakaslea. Aritz Gorrotxategi

Guztiak, larunbatean **autobus geltokitik** 18:00etan aterako den manifestaziorako prestatutako kartel iragartzaileak eskuan zituztela agertu ziren. Berria - Euskal Herria

Guztira, hiru metro geltoki eta **autobus geltoki** bat izan dira leherketak pairatu dituztenak, tartean Tavistock Square **autobus geltokia**. Berria - Harian

Horregatik, fraide atezainak amaren berria eman zidanean, tximistak hartua bezala egin nuen lasterka, Mundaiztik Gipuzkoako Enparantzako **autobus-geltokira**, handik autobusean etxera. Joan Mari Irigoien

Informalaren txanoa jantzi, eta lasterka txikian iritsi nintzen institutu aurreko **autobus-geltokira**. Anjel Lertxundi

Weasley jauna lehenagotik hasia zitzaien galdezka ea nola funtzionatzen zuten **autobus-geltokiak**, baina berehala isildu zen Weasley andrearen begiratua ikusita. Iñaki Mendiguren

Isuri zuria gogoan, **autobus geltokiko** komunetan angelusa jo zuen. Itxaro Borda

Horrengatik manifestazio bat antolatzen du, helduden ekainaren 19 an, aratsaldeko 6 etan, Iruñeko **autobus geltokitik** aterako dena. Herria

Txinak, bestalde, aireportuetan ez ezik, tren eta **autobus geltokietan** eta mugetan ere ezarri ditu gorputzeko tenperatura neurtzeko gailuak. Berria - Gaiak

Autobus geltokiaren inguruan egunkaria erosi zuen. Joxemari Urteaga

Txolarre bat **autobus geltokiko** farolaren gainean eta galduta dabilen zakurra, zakarrontzian usnan. Xabier Etxabe

Autobus geltokian elkartu zirenez geroztik, ondo zihoan dena. Iñaki Iñurrieta

Londresko **autobus-geltoki** nagusia zegoen aurreko espaloian. Lutxo Egia

Autobus-geltokira joaten da: hirira doa. Eskarne Mujika

4 *autobus geraleku* *(corpusean ez dago; ETCn **161** agerraldi)*

Ehun bat metro harantzago **autobus-geraleku** bat zegoen, eta autobusa minutu gutxian etorriko zen. ETC-literatura, saiakera

Autobus-geralekuaren bazterrean, zuhaitzen azpian, berde eta atsegina zen giroa, eta gogoan hartu zituen Stonewall Jackson-en azken hitzak: "Goazen ibaia zeharkatzera eta zuhaitzen gerizpean atseden hartzera". ETC-literatura, saiakera

Autobus geralekuaren ondoan bizikletak alokatzeko gune ireki bat dago. ETC-literatura, saiakera

Baina, **autobus geralekuaren** ondora iristean, kotxea gelditu zuen. ETC-literatura, saiakera

Autobus geraleku huts baten aurretik igaro nintzen. ETC-literatura, saiakera

Gau hartan bezala, **autobus-geraleku** batean gelditu zuen Iratik kotxea, eta Josebak ezin izan zuen ekidin txantxa bat egitea. ETC-literatura, saiakera

Azken **autobus-geralekuan**, egiazko familia bat balira bezala esan diote agur elkarri. ETC-literatura, saiakera

"Nik ama hiltzea nahiago dut amona hiltzea baino", esan du mutil gazteak **autobus geralekuan**. ETC-prentsa

Itzulera, guk, autobusez egitea erabaki dugu; hondartza ondoan dago **autobus geralekua** eta Armintzara doan autobusa hartuta, berehala iritsiko gara. ETC-prentsa

15 minutuan Ereñotik Nabarnizera daraman errepidera jaitsiko gara; jolasleku txikitxo bat eta **autobus geralekua** dagoen tokira. ETC-prentsa

Kaskonategiko **autobus geralekua** handitu egingo dute. ETC-prentsa

Nik ere adibide bat jarriko dut: gure baserritik **autobus geraleku** hurbilena ordu bat eta erdira dago. ETC-prentsa

Puntu horretan, **autobus-geralekua** ez ezik, arnasgune soziofuntzionala ere kokatuko litzateke, kultur laboratega, erabilera mistoa (**autobus-geralekua** kultur eskaintza) izango lukeena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Geltokiaren inguruan Bilbobus zerbitzua hornitzen duten lau **autobus geraleku** daude. ETC-entziklopedia

Geltokiaren kanpoaldean Bilbobus eta Bizkaibus zerbitzuak hornitzen dituzten hainbat **autobus geraleku** daude. ETC-entziklopedia

5 *autobusa galdu* autobusa, trena eta kidekoak huts egin. ik**huts**[1] **18**.

Badaki bostetako **autobusa galdu** duela, eta ez du presa handirik. Iban Zaldua

Gerta zitekeen gaurko **autobusa galtzea,** beste egun batez itxaron behar izatea Erzurumen... Jon Arretxe

6 *bi solairudun autobus* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Bi solairudun autobusak. ETC-prentsa

Bi solairuko autobus edo **bi solairudun autobusa** (ingelesez "Double-decker bus") bi maila dituen ibilgailu edo autobusa da. ETC-entziklopedia

7 *bi solairuko autobus*

Aurreko autobusean nindoan eta danbateko izugarria entzun dut; burua jiratu eta **bi solairuko autobusaren** erdia airean ikusi dut. Berria - Harian

Plazaren iskina batean Europako Batasunaren mapa bat margotuta daukan **bi solairuko autobus** bat dago: Lijna 25. Berria - Mundua

Berrogei bat laguneko taldeak Molis autocars konpainiaren 1995eko **bi solairuko autobus** batean filmatu zituen Ireneren bidaiaren eszena gehienak, uda erdian, bero hezea azalera itsasten zen egunetan. Berria - Kultura

Bidean gora eta basotik aterata, **bi solairuko autobus** baten zarata entzun zen gure atzetik. Koro Navarro

8 *igarotze azkarreko autobus* *(corpusean ez dago; ETCn **43** agerraldi)*

Igarotze azkarreko autobusa edo IABa (ingelesetik, "Bus Rapid Transit", "BRT" laburtua) garraio publikorako autobus sistema bat da, diseinu, zerbitzu eta azpiegitura bereziak dituena sistemaren kalitatea hobetzeko eta atzerapenak eragiten dituzten arazo arruntenak saihesteko. ETC-entziklopedia

Avignongo **igarotze azkarreko autobusaren** 2. linea sarean aurreikustako bi lineetako bat da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autobus abiatu (3); **autobus antolatu** (5); **autobus atera ziren** (3); **autobus barruan** (5); **autobus bat abiatuko** (7); **autobus bat amildegi** (3); **autobus bat antolatu** (3); **autobus bat antolatua** (6); **autobus bat bahitu** (7); **autobus bat erre** (5); **autobus bat erretzea** (5); **autobus bat erretzen** (3); **autobus bat geldiarazi** (3); **autobus bat hartu** (3); **autobus bat jo** (4); **autobus batean bonba** (3); **autobus batean zihoazen** (3); **autobus batek elkar** (3); **autobus batek harrapatuta** (3); **autobus bateko plataforman** (3); **autobus baten aurkako** (3); **autobus baten kontra** (5); **autobus batera** (6); **autobus bati** (6); **autobus berbera** (3); **autobus berean** (6); **autobus berezi** (3); **autobus berria** (3); **autobus bete dituzte** (4); **autobus ekoizten ditu** (3); **autobus ere** (3); **autobus eta tranbia** (4); **autobus eta tren** (5); **autobus garraio** (3); **autobus gehiago** (3); **autobus geltoki batean** (4); **autobus geltokia** (6); **autobus geltokian** (18); **autobus geltokiaren** (6); **autobus geltokiko** (3); **autobus geltokira** (12); **autobus geltokitik abiatu** (3); **autobus geltokitik abiatuko** (3); **autobus geltokitik aterako** (8); **autobus gidari** (6); **autobus gidaria** (5); **autobus gidariak** (5); **autobus gidariek** (3); **autobus gorri** (3); **autobus guztiak** (4); **autobus hartan** (3); **autobus hori** (4); **autobus horiek** (5); **autobus horretan** (3); **autobus istripu batean** (6); **autobus konpainiako** (5); **autobus konpainiaren** (4); **autobus on** (3); **autobus ttipitto** (3); **autobus txiki batean** (3); **autobus ugari** (3); **autobus zerbitzu berri** (3); **autobus zerbitzua** (11); **autobus zerbitzuak** (6); **autobus zerbitzuek** (3); **autobus zerbitzuetan** (4)

beste autobus bat (5); **betetako autobus** (3); **bi pisuko autobus** (4); **bi solairuko autobus** (6); **bigarren autobus** (3); **bost autobus** (4); **da autobus geltokitik** (3); **dira autobus istripu** (3); **diren autobus** (5); **dituen autobus** (3); **du autobus** (6); **duen autobus** (5); **elkarretaratzea autobus geltokitik** (3); **ere autobus** (4); **eskola autobus** (4); **hainbat autobus** (4); **hamar autobus** (5); **hil dira autobus** (6); **hiru autobus bete** (3); **iruñeko autobus geltokitik** (8); **iruñerriko autobus** (3); **iruñerriko hiri autobus** (3); **joaiteko autobus bat** (3); **lineako autobus batean** (3); **lineako autobus ia** (3); **metro eta autobus** (5); **s autobus baten** (3); **s lineako autobus** (9); **solairuko autobus batean** (3); **tren eta autobus** (7); **zen autobus bat** (5); **zeramatzan autobus** (4); **zihoan autobus batek** (3); **zituen autobus** (5); **zuen autobus** (7); **zuten autobus** (4)

abiatuko da autobusa (3); **autobusa abiatuko da** (7); **autobusa antolatu** (5); **autobusa edo trena** (4); **autobusa ez** (4); **autobusa galdu** (3); **autobusa gelditu** (5); **autobusa hartu behar** (6); **autobusa hartu nuen** (4); **autobusa hartu zuen** (4); **autobusa hartzeko** (15); **autobusa hartzen du** (3); **autobusa hartzen dut** (3); **autobusa hartzera** (8); **autobusa noiz** (5); **autobusa zain** (3); **doa autobusa** (4); **dute autobusa** (4); **ere autobusa** (3); **eskaini autobusa** (3); **gure autobusa** (3); **joateko autobusa** (6); **lehen autobusa** (3); **trena edo autobusa** (3); **zen autobusa** (13); **zihoan autobusa** (3); **ziren autobusa** (3); **zuen autobusa** (9); **zuten autobusa** (3)

antolatzaileek autobusak (4); **autobusak abiatuko dira** (5); **autobusak antolatu ditu** (3); **autobusak antolatu dituzte** (3); **autobusak antolatzen** (4); **autobusak ere** (7); **autobusak ez** (4); **autobusak izanen dira** (6); **autobusak jarri** (6); **autobusak jarriko dituzte** (4); **autobusak urririk** (3); **dira autobusak** (4); **ditu autobusak** (5); **du autobusak** (3); **zen autobusak** (3); **zuen autobusak** (5)

autobusaren atzealdean (3); **autobusaren aurrean** (3); **autobusaren barruan** (5); **autobusaren bidean sartu** (3); **autobusaren leihotik** (3); **autobusaren zain** (13)

autobusarena gertatu (3)

autobusean egin (4); **autobusean eserita** (4); **autobusean etorri** (3); **autobusean ez** (3); **autobusean joan** (3); **autobusean sartzen** (4); **autobusean zihoazen** (6); **dira autobusean** (3); **ere autobusean** (5); **metroan edo autobusean** (3); **ziren autobusean** (4); **zuen autobusean** (3); **zuten autobusean** (4)

bi autobusek (3); **diren autobusek** (3)

autobuseko bidaia (5); **autobuseko bidaiariak** (3); **autobuseko bidaiarien** (4); **autobuseko gidaria** (3); **autobuseko gidariak** (5); **autobuseko leihatilatik begira** (3); **autobuseko leihotik** (3); **autobuseko txoferra** (5)

autobusen geltokitik (4)

autobusera igo da (3); **autobusera igo naiz** (3); **autobusera igotzen** (5)

autobuserako bidean (3)

autobusetan sartu (3); **bi autobusetan** (8); **hiru autobusetan** (3)

autobusetik jaistean (3); **autobusetik salto egin** (3)

autobusez abiatu (5); **autobusez edo** (4); **autobusez egin** (3); **autobusez ibili** (3); **autobusez joan** (7); **autobusez joaten** (4); **bidaia autobusez** (3); **edo autobusez** (5)

autobusik ez (8)

---

autobuskada *iz* autobus bateko bidaide multzoa.

Zaharrak zenbat gura dabiltza, **autobuskadetan**, bisitan. Edorta Jimenez

Behin, ikasturte amaiera aldera, bere herrira egin genuen txangoa, **autobuskada** bat, eta lepo egin genuen odolkiz eta solomoz eta txerri hankez eta urdaiez. Karlos Linazasoro

Azkenean, ez nion burutapen haien azalpenik egin; ez, ordea, egitea gaizki iruditzen zitzaidalako, baizik eta bion artean japoniar **autobuskada** bat jarri zelako. Ramon Saizarbitoria

Hemen itxaroten geundela, gure bide bera egiten ari zen beste **autobuskada** bat elkartu zaigu, eta horrek are gehiago geldotu ditu tramiteak, eraikin hau kartzela baten antzekoa baita, eta den-denoi zigilua ipini arte ez baitigute askatasunaren atea irekiko. Jon Arretxe

Nire lehengusu Maria Teresa ezkondu zenean **autobuskada** bat irlandar ibili genuen inguruotan gora eta behera. Xabier Mendiguren Elizegi

---

autodafe *iz* fede autoa. ikus **auto**[2] **3**; **fede 10**; **autofede**.

Bi **autodafe** horien ondoren, berrogeita hamar bat liburu inprimatuk eta beste hainbat eskuizkribuk iraun zuten haren obratik. Jon Muñoz

---

autodefentsa *(ETCn **1.816** agerraldi, horietatik **1.042** azken sei urteetan) iz* norberaren buruaren defentsa.

Jazarpenari aurre egiteko **autodefentsa** moduko zerbait dela. Hasier Etxeberria

Beldur eta zalantzazko une baten ondoren **autodefentsazko** sena nagusitzen zitzaidan, ordea: lasterkari ematen nion geratzen zen malda zati hartan gora, mendirantz, askatasunerantz. Agurtzane Juanena

Halako mezu zakarrak entzunda, **autodefentsa** tresna egokia da ironia Argi baita, funtsaren funtsean, hara anbiguotasunaren oinarria, indarkeria txarra dela denentzat, baina geunden egoera larrian premiazkoa, **autodefentsa** molde bat. Berria - Euskal Herria

Kezka horien ondorioz batzuetan egokienak ez diren **autodefentsa** mekanismoak jartzen dira martxan, baina hori entrenatzaile guztiekin gertatzen da. Berria - Kirola

Ironia **autodefentsarako** mekanismo bat da, errealitatearengandik distantzia markatzeko, ezinbesteko aringarria bai literaturan bai bizitzan. Ana Urkiza

Autodefentsarako bere azken tresna hamabi orriko egunkaritxo bat da: El Correo del Presidente. Pako Aristi

---

autodefentsibo *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi) izond* autodefentsarena, autodefentsari dagokiona.

Euskaldunak, bere lurrean jabe eta hegemoniko zenean, izendegi **autodefentsibo** bat garatu zuen. ETC-literatura, saiakera

Hori gauzatzeko aukera txikiena ere errealista ez denean -eta horrela izan da ETAren historia osoan- bere diskurtsoa eldarnio bihurtzen zen, ezin baitzuen jarrera **autodefentsiboa** eta aldi berean autosuntsitzailea onartu, ezta ikusi ere. ETC-literatura, saiakera

Gose-aingeruaren eldarnioa, nekea, gaixotasuna eta batez ere hatsaren kulunka, premiazko tresna **autodefentsiboak** dira, presoek daukaten guztia, biziraupen automatikoaren seinale. ETC-prentsa

Batzuetan pentsamendua bihurtu da barrikadaren parte, eta sortu den euskal pentsamendua **autodefentsiboa** izan da maiz. ETC-prentsa

Jokaera **autodefentsiboa**: banakoak, ihes egitea zaila denean, bere burua predarien zein espezie bereko kideen erasoetatik babesteko azaltzen dituen jokaera erasokorrak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

autodeterminatu, autodetermina(tu), autodeterminatzen **1** da *ad* nork bere buruaz erabakiak hartu.

Norbanakoari berari aukera ematen dio **autodeterminatzeko** eta bere bizitzaren eta bizi den ingurunearen gobernua bere gain hartzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ni ezkonduta nago, ia egunero **autodeterminatzen** naiz, baina ia erabaki bakar bat ere ez dut hartzen erabaki esparru gisa. Berria - Euskal Herria

2 da *ad* herrialde bateko estatus politikoa bertako herritarrek erabaki.

Euskal sukaldaritza berritzeari, arte ederren eta batik bat eskulturaren mundu-mailako berrikuntzari, eta Estatutuaren bidez **autodeterminatzeari** ekiten diola. Iban Zaldua

Une honetan **autodeterminatzeko** eskubidea eskatuko dugu eta gu Madrilera joango gara bizkaitarren, gipuzkoarren eta arabarren izenean. Berria - Euskal Herria

---

autodeterminazio **1** *iz* herrialde bateko estatus politikoa bertako herritarrek erabakitzea.

Estatuaren, **autodeterminazioaren**, eta nazionalismoaren definizioekin dituen lotura estuek arazo gehiago eransten dizkio, gainera. Joseba Zulaika

Euskal Herriari errotik atxikia da auzapeza, Euskal Herriak duen **autodeterminazio** eskubideen alde manifestatzeraino. Herria

Autodeterminazio eskubidea zenbaki arraro horren antzeko zerbait izan daiteke, beharbada. Bernardo Atxaga

Autodeterminazioa badakigu nontsu dagoen, baita heterodeterminazioa ere; Espainia ere bai, Euskal Herriaren proiektua (k) ere bai, eta... Eta zer? Iñaki Segurola

Kontua da ekintza hauek guztiek zikindu egiten dutela bidezko eskaera demokratikoa dena: **autodeterminazioa**. Hasier Etxeberria

Neska amerikarra da, gizona Quebecekoa, orduan nik esan diet Quebecera begira bizi garela gu batzuetan eta ea zer pentsatzen duen berak hango **autodeterminazioaz**. Edorta Jimenez

Europa azken hogei urteetan, **autodeterminazio** eskubidea gauzatzearen ondorioz erabat aldatu dela adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Urteak pasatu ahal, ondoriozta daiteke Euskal Herritarrok alderdiarentzat treguaren helburu nagusia EAJren **autodeterminaziora** plegaraztea izan zela. Itxaro Borda

Zein zekenak izaten diren pilulak errezetatzeko orduan, zelako harropuzkeriaz darabilten beren agintea! **Autodeterminaziotik** aldentzen duen guztia da txarra. Markos Zapiain

2 *autodeterminazio erreferendum* *(ETCn **444** agerraldi)*

1992. urtean **autodeterminazio erreferenduma** egitea zehazten zen bertan. Berria - Mundua

Hirugarrenik, txostenak dio NBEk ezin duela, Marokok nahi duen bezala, **autodeterminazio erreferenduma** egitea aintzat hartuko ez duen plan bat sustatu. Berria - Harian

Urrian aurkeztu behar du Kofi Annan NBEko idazkari nagusiak Mendebaldeko Sahararen inguruko txostena, nazioarteko erakundeak herrialdean **autodeterminazio erreferenduma** antolatzeko ezarri zuen misioaren epea agortu baino lehen. Berria - Mundua

3 *autodeterminazio eskubide* *(ETCn **3.156** agerraldi)*

1918an, Georges Wilson Ameriketako presidenteak berriz aipatu zituen aspaldiko Nazionalitateen printzipioa eta Populuen **Autodeterminazio Eskubide** agertu berria, printzipio horien arabera antolatu nahiz Europako mapa berria. Piarres Xarriton

Adierazi al du inork **autodeterminazio eskubide** hori nola beteko litzatekeen? Bernardo Atxaga

Horra zergatik, XIX. mende hondarrean, sozialismoaren aldetik nazionalitateen printzipioaren ordezkatzera etorri zen Populu eta Nazio guztien, handien eta ttipien, **"Autodeterminazio eskubidea"** aldarrikatzen zuen doktrina. Piarres Xarriton

Batasuna alderdiak eskaini duen prentsaurrekoan **autodeterminazio eskubidea** defendituko duela azaldu du. Herria

Munduko populu guztien eskubideak eta, bereziki, **Autodeterminazio eskubidea** eta Beregaintasuna behar bezala onartuak eta zainduak ez direno, ez da izaiten ahal egiazko bake iraunkorrik. Piarres Xarriton

ETAk berean segituko du, behin eta berriz aditzera eman duenez, Ebrotik Atturrira bitarteko lur eremu guztian **autodeterminazio eskubidea** erabiltzen den egunera bitartean. Hasier Etxeberria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autodeterminazio erreferenduma antolatzeko (3); **autodeterminazio erreferenduma egin** (3); **autodeterminazio erreferenduma egingo** (3); **autodeterminazio erreferenduma egitea** (4); **autodeterminazio erreferenduma egiteko** (5); **autodeterminazio eskubide** (4); **autodeterminazio eskubidea aintzat** (7); **autodeterminazio**

eskubidea aipatzen (3); **autodeterminazio eskubidea aitortu** (3); **autodeterminazio eskubidea aitortzea** (11); **autodeterminazio eskubidea aitortzen** (5); **autodeterminazio eskubidea aldarrikatu** (12); **autodeterminazio eskubidea aldarrikatuko** (7); **autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko** (4); **autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen** (6); **autodeterminazio eskubidea da** (3); **autodeterminazio eskubidea defendatzea** (3); **autodeterminazio eskubidea defendatzeagatik** (3); **autodeterminazio eskubidea defendatzen** (5); **autodeterminazio eskubidea dela** (6); **autodeterminazio eskubidea duela** (6); **autodeterminazio eskubidea ere** (3); **autodeterminazio eskubidea errespetatzeko** (3); **autodeterminazio eskubidea ez** (18); **autodeterminazio eskubidea gauzatu** (3); **autodeterminazio eskubidea gauzatzea** (3); **autodeterminazio eskubidea gauzatzeko** (5); **autodeterminazio eskubidea oinarri** (7); **autodeterminazio eskubidea onartu** (7); **autodeterminazio eskubidea onartuko** (4); **autodeterminazio eskubidea onartuz** (3); **autodeterminazio eskubidea onartzea** (7); **autodeterminazio eskubidea onartzeko** (4); **autodeterminazio eskubidea onartzen** (14); **autodeterminazio eskubidea ukatzea** (4); **autodeterminazio eskubidea ukatzen** (9); **autodeterminazio eskubideak** (11); **autodeterminazio eskubidean oinarrituta** (4); **autodeterminazio eskubidean oinarritutako** (6); **autodeterminazio eskubidearen aitorpena** (3); **autodeterminazio eskubidearen aitortza** (3); **autodeterminazio eskubidearen alde** (19); **autodeterminazio eskubidearen aldeko** (24); **autodeterminazio eskubidearen defentsa** (6); **autodeterminazio eskubidearen errespetua** (3); **autodeterminazio eskubidearen ezagutza** (6); **autodeterminazio eskubidearen inguruan** (6); **autodeterminazio eskubidearen inguruko** (3); **autodeterminazio eskubidearen onarpena** (7); **autodeterminazio eskubideari buruz** (3); **autodeterminazio eskubideaz** (7); **autodeterminazio eskubideen** (3); **autodeterminazio eskubiderik** (3); **autodeterminazio hitza** (4)

baizik eta autodeterminazio (3); **da autodeterminazio eskubidea** (4); **da autodeterminazio eskubidearen** (3); **donostia autodeterminazio eskubidea** (3); **du autodeterminazio eskubidea** (4); **duen autodeterminazio** (4); **dute autodeterminazio eskubidea** (3); **europako konstituzioak autodeterminazio** (4); **euskal herriak autodeterminazio** (3); **euskal herriaren autodeterminazio** (19); **euskal herriari autodeterminazio** (6); **euskal herritarren autodeterminazio** (4); **ez du autodeterminazio** (3); **ez duela autodeterminazio** (3); **ezker abertzaleak autodeterminazio** (3); **gakoa autodeterminazio** (3); **guztien autodeterminazio** (3); **herriak autodeterminazio eskubidea** (3); **herriaren autodeterminazio eskubidea** (12); **herriaren autodeterminazio eskubidearen** (9); **herriari autodeterminazio eskubidea** (8); **herrien autodeterminazio eskubidea** (17); **herritarren autodeterminazio eskubidea** (4); **konstituzioak autodeterminazio eskubidea** (7); **populuen autodeterminazio** (3); **sahararen autodeterminazio** (3); **sahararren autodeterminazio eskubidea** (4)

autodeterminazioa aldarrikatzen (4); **autodeterminazioa bai** (5); **autodeterminazioa behar** (3); **autodeterminazioa defendatzen** (5); **autodeterminazioa eskubidea** (7); **autodeterminazioa eta herri** (3); **autodeterminazioa eta herriari** (3); **autodeterminazioa eta independentzia** (3); **autodeterminazioa eta lurraldetasuna** (8); **autodeterminazioa ez da** (4); **autodeterminazioa helburu** (3); **autodeterminazioa lelopean deitutako** (3); **autodeterminazioa lortzeko** (5); **autodeterminazioa onartzea** (4); **autodeterminazioa orain** (10); **bakea eta autodeterminazioa** (4); **da autodeterminazioa** (4); **du autodeterminazioa** (5); **herrien autodeterminazioa** (4); **subiranotasuna eta autodeterminazioa** (3)

autodeterminazioaren alde dauden (3); **autodeterminazioaren alde indarrak** (5); **autodeterminazioaren aldeko borroka** (3); **autodeterminazioaren aldeko borrokan** (3); **autodeterminazioaren aldeko boto** (3); **autodeterminazioaren aldeko botoa** (10); **autodeterminazioaren aldeko botopapera** (3); **autodeterminazioaren aldeko indar** (5); **autodeterminazioaren aldeko indarrak** (13); **autodeterminazioaren aldeko indarren** (7); **autodeterminazioaren aldeko kanpaina** (4); **autodeterminazioaren aldeko zerrenda** (4); **autodeterminazioaren aldekoak** (3); **autodeterminazioaren aldekoen** (3); **autodeterminazioaren biltzarrak** (3); **autodeterminazioaren eskubidea** (4); **autodeterminazioaren eztabaida** (3); **autodeterminazioaren inguruan** (10); **autodeterminazioaren inguruko** (3); **da autodeterminazioaren** (3); **donostia autodeterminazioaren** (3); **du autodeterminazioaren** (3); **espainiako hauteskundeetan autodeterminazioaren** (3); **hauteskundeetan autodeterminazioaren aldeko** (7); **herriaren autodeterminazioaren aldeko** (3); **iruñea autodeterminazioaren** (3); **mendebaldeko sahararen autodeterminazioaren** (3)

autodeterminazioari buruz (6); **autodeterminazioari buruzko erreferenduma** (5)

autodeterminazioaz ari (3)

autodeterminaziorako bilguneak (3); **autodeterminaziorako eskubidea** (13); **autodeterminaziorako pauso** (3); **edo autodeterminaziorako** (3); **herrien autodeterminaziorako** (3)

---

autodeterminista *izond* autodeterminazioaren aldekoa.

Euskal gizartean birus **autodeterminista** bat sortu dugu, gure borrokarekin. Berria - Euskal Herria

Lehendakariak esaten duenean kontsulta hori Madriletik pasatu baino lehen egin behar dela, hori sine qua non baldintza da, planteamendu **autodeterminista** bat egiteko. Berria - Euskal Herria

---

autodidakta *izond* inongo maisuren laguntzarik gabe, bere kabuz ikasten duena.

Juan ni baino **autodidaktago** izan da beti, bizkorrago ez ezik. Joxerra Garzia

Bera bezala, txirrindulariek ere **autodidaktak** omen dira biomekanikan: interesa dute, euren lanbidea delako, eta jakintza ere bai. Berria - Kirola

Etxean euskarazko libururik ez genuen, baina erdarazko batzuk bazituen aitak, **autodidakta** baitzen. Ana Urkiza

Autodidakta moduan, hurrengo zerrendaz balia daiteke bat. Askoren artean

Aita ere, dirudienez, ilustratu samarra zuen, jakin-min handiko gizona eta **autodidakta**, bere hizkera bizitza osoan hobetzen saiatu zena, eta don Justo Gramatikaria ere halatsu atera zen, zura nolako, ezpala halako. Joan Mari Irigoien

Autodidakta izatea egokitu zitzaion, eta ez berak hala nahi izan zuelako, beste erremediorik izan ez zuelako baizik. Juan Luis Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autodidakta da (4); **autodidakta izan** (3)

autodidaktak ez (4); **du autodidaktak** (3); **esan zuen autodidaktak** (4)

---

autodiziplina *(orobat **autodisziplina**) iz* norberak bere buruari ezarritako diziplina.

Era berean, enpresa bakoitzaren "**autodiziplina**" sustatuko dute, produktibitatea hobetu eta prezioak egonkortu daitezen. Berria - Harian

Etika, filosofiari edo teologiari baino areago, **autodisziplinari** ez balegokio bezala. Joxerra Garzia

---

autoebaluazio *iz* norberaren buruari edo norberak egindako lan bati egiten zaion ebaluazioa.

"Gainera, estatuak berak egiten du **autoebaluazioa**», esan zuen Hartsuagak. Berria - Euskal Herria

---

autoeditatu *(corpusean ez dago; ETCn **62** agerraldi)* **1** du *ad* zerbait, ohiko enpresa eta bideetatik kanpo, norberaren baliabideak erabiliz argitaratu.

Hori dela eta, bere hurrengo eleberria - **autoeditatua**-, hitz-osteaz gain, aitzinsolasaz hornitu zuen. ETC-literatura, saiakera

Samizdaten erregimenaren aurkako bitarteko klandestinoak bidez **autoeditatzen** zuen Klimak. ETC-prentsa

Andoni Salamerok eta Josi Labajosek poesia liburu bana idatzi eta **autoeditatu** zuten. ETC-prentsa

Posible da adibidez norberak aldizkari bat **autoeditatzea**. ETC-prentsa

Agirre, Blasco, Etxarte, Irazusta eta Velte kenduta, gainontzeko bostak beka edo sari baten bidez atera dira plazara -Irazustarena, berriz, **autoeditatua** da-. ETC-prentsa

Barrubaso liburua **autoeditatu** zuen iaz, urte amaieran. ETC-prentsa

Jabier Erostarbe ilustratzaileak, estudio grafikoa Oñatin duenak, komiki hau **autoeditatu** zuen: Mattin, basoko gidaria (IZBA, 2014). ETC-zientzia, zuzenbidea

Argentinan, Liliana Cabrerak zenbait poesia-liburu **autoeditatu** zituen, kartzelan idatzirikoak bilduta. ETC-zientzia, zuzenbidea

2014. urtean Markina-Xemeingo udalaren laguntzaz **autoeditatu** zen eta 2015. urtean argitaratu zen Denonartean argitaletxearen bidez. ETC-entziklopedia

2011tik hona **autoeditatutako** argitalpen ugari egin ditu eta aldizkari eta fanzine ezberdinetan ikus daiteke bere lana. ETC-entziklopedia

2015ean bilduma diska bat **autoeditatu** zuten. ETC-entziklopedia

2 (era burutua izenondo gisa)

Frai Joxe (egile editore) .>>Ezizenez sinatutako eta egile ezagunik gabeko poema liburu **autoeditatua** da _i_Hamaika birjina_/i_, erreferentzia erlijioso ugariz hornitua. ETC-prentsa

Ibai Mendinuetaren 1.050 orrialdeko nobela **autoeditatu** mardula eta Antonio Casado da Rocharen poema liburua bakanak dira alde horretatik. ETC-prentsa

Emakumeak euskal herri ipuinetan duen irudia aztertu du 'Gatzaren atzetik' saiakera **autoeditatuan** , 'Mari-Xor' ipuinean oinarrituta. ETC-prentsa

Material grafiko **autoeditatuaren** erakusleiho izango da bihar Alondegia. ETC-prentsa

Haiekin adostu genuen baietz, noizbait single **autoeditatu** hori kaleratuko genuela . ETC-prentsa

---

autoeditore *iz* norbere idazlanen editorea.

Erkidegoko legebiltzar autonomikoko parlamentari mutuetariko bat hemen, pare bat poesi libururen **autoeditorea** hor, sokakoa ez izan eta administrazioaren laguntza faltaz lantegia itxi berria zuen enpresari tikia han. Aingeru Epaltza

Oraingoan, ordea, "**autoeditore** " lanak egin beharrean, Susaren esku utzi du behar hori guztia: "Nik idaztearekin nahikoa izan dut", esan zuen egileak. Berria - Kultura

---

autoedizio *iz* testuak edo irudiak ordenagailu bidez editatzea eta inprimatzea.

Autoedizioa jorratuz, Apatx argitaletxearen eskutik eman du argitara lehen poema liburua Andonio Salamerok. Berria - Kultura

Autoedizioaren bidetik, bi egileren poema liburu banarekin jarri da abian Apatx argitaletxea. Berria - Kultura

---

autoegile *iz* autoen egilea.

Europako **autoegile** handienak, Volkswagenek, 176.000 langile ditu bere sorterrian, Alemanian. Berria - Ekonomia

Aldian behin sistemaren ordezkari ezagunen biografiak ere erabiltzen ditu trilogian, hala nola, Henry Ford **autoegile** , Thomas Edison asmatzaile, Woodrow Wilson presidente eta J. P. Morgan finantzariarena. Lopez de Arana

---

autoekoitzi, autoekoitz(i), autoekoizten *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)* **1** du *ad* zerbait, ohiko enpresa eta bideetatik kanpo, norberaren baliabideak erabiliz ekoitzi.

'Stereosaurus' bigarren lana **autoekoitzi** , eta bere kabuz argitaratu du Gasteizko taldeak . ETC-prentsa

Diskoetxea eratu eta diskoa **autoekoitzi** dute; Espainiako Autoreen eta Editoreen Elkartetik, SGAEtik, ateratzeko lehen urratsa egin dute; diskoa sarean jarri dute, copyleft-arekin. ETC-prentsa

Estreinako lana **autoekoitzi** egin bazuten ere, ez dute arazorik izan disko berria zigilu batekin argitaratzeko. ETC-prentsa

Euskal Herria Zuzenean jaialdiak euren musika **autoekoizten** duten musika talde hasiberrientzako lehiaketa antolatu du. ETC-prentsa

Autoekoitzi ostean, Elkar argitaletxearen laguntza izan dute plazaratzeko, eta pozik azaldu dira taldekideak emaitzarekin. ETC-prentsa

Egileak berak **autoekoitzi** du, eta Joxerra Gartziaren babesa izan du prozesu guztia aurrera eramateko. ETC-prentsa

Talde bakoitzak **autoekoizten** du bere diskoa, eta zigiluak, nolabait, zabalpenean eta sustapenean laguntzen die. ETC-prentsa

Eta, bestetik, urteroko trago txarra da **autoekoizten** dutenei azokan ematen zaien lekua, jakinik autoekoizpena gaur egun ardatza dela gure sorkuntzan. ETC-prentsa

Liburua **autoekoitzi** egin du lasartearrak, eta asko zaindu du edizioa. ETC-prentsa

Merkatu-agentea den kontsumitzaile batek, hots, burtsan erosteko ahalmena duen kontsumitzaile batek, **autoekoizteko** ahalmena ere izan dezake. ETC-zientzia, zuzenbidea

2004ko Azaroan, beraien lehen lana **autoekoitzi** zuten Max eta Jokin Moteroren laguntzarekin. ETC-entziklopedia

Beñat Zozaia baxu jotzailearekin taldea zazpikote bihurtu zen -ondorioz, Larrondek baxua utzi eta gitarra hartu zuen-, eta 1993an bere lehen diskoa **autoekoitzi** zuen, "Zapatak ari ziren", hamar kantukoa. ETC-entziklopedia

2 (era burutua izenondo gisa)

Gai politiko eta sozialak jorratu ditu batez ere 'Ertzetako komunukazioak' poema liburu **autoekoitzian** . ETC-prentsa

Xabi Etxeberri biolin jotzaileak ehun metroko lasterkaldirako prestatzen ari den kirolariaren performantziarekin konparatzen du Paco Etxebers Paco-ren (Irulegi, 1980) _i_Denbora_/i_ disko **autoekoitzia** . ETC-prentsa

---

autoekoizpen *iz* zerbait, ohiko enpresa eta bideetatik kanpo, norberaren baliabideak erabiliz ekoiztea; bereziki, musika-diskoak edo bestelako grabaketak ohiko grabazio estudio eta diskoetxe handietatik kanpo grabatzea eta argitaratzea.

Harritu egin nau, diskoa **autoekoizpen** bat delako; baina eskertu ere egiten dut, beti delako pozgarria norberaren lanak oihartzun bat duela ikusteak. Berria - Kultura

Taldea bera arduratuko da argitalpenaz, **autoekoizpenera** jo baitu. Berria - Kultura

---

autoengainu *(corpusean ez dago; ETCn **61** agerraldi)* *iz* nork bere buruari egindako engainua.

Arraroa zen norbere buru-gaixotasuna norberak atzematea, dementziak ia beti baitzekarren berekin **autoengainua** . ETC-literatura, saiakera

Kontuak ateratze aldera, soinean daramagun **autoengainu** eta miseria kuotari erreparatzea komeni da. ETC-literatura, saiakera

Autoengainuaren patina absolbitzaile hori: nahiago du sufritzea min egitea baino. ETC-literatura, saiakera

Nahikoa nuen nik neure burua engainatzen nuenean engainua onartu behar izatearekin, zure edo beste inoren **autoengainuak** fitsik esan gabe behin eta berriz irentsi behar izateko. ETC-literatura, saiakera

Shiva txikitzailea da, baina ez Tasmaniako deabrua, ilusioak - **autoengainuak** - eta inperfekzioak txikitzen ditu; onerako, eraikitzeko txikizioa. ETC-literatura, saiakera

Mendebaldeak behar du **autoengainua** argitu: bere paradigmaren ontasuna konpentsatu behar luke agertu duen ahalmen suntsitzailearekin. ETC-literatura, saiakera

"Jakin beharko lukete gezurrean eta **autoengainuan** oinarritutako analisi politikoek bakartzera eta euren ideiak erabateko porrotera eramango dituztela", gaineratu zuen. ETC-prentsa

90 urte bete zituen arte, bere kontraesanak eta **autoengainuak** barne, irizpide batzuk bazituen, artelanak egin eta erreplikak osatzean. ETC-prentsa

Uste dut **autoengainua** erabili behar dela defentsa legitimo gisa, kontzienteki eta beste irtenbiderik ez bada. ETC-prentsa

Arrazionalizazio teorikokognitiboaren bidez gizakiak **autoengainu** eta ilusioez askatuko dira (mundu-ikuskera magikoak edo erlijiosoak). ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, zientzialariek bazuten orain eskuetan sestante bat, hain sinplea ezen ez baitzuen lekurik uzten **autoengainurako** . ETC-zientzia, zuzenbidea

Paziente baten aitormen hunkigarriek bere bizitza sakonki aztertzera damarate, eta berau hutsa, **autoengainuan** oinarritua eta emozioen beldur dela ohartuko da. ETC-entziklopedia

---

autoenplegu *iz* norberak bere buruari ezarritako soldatapeko lana.

Batik bat, **autoenplegua** bultzatzeko eta herritarren oinarrizko premiak asetzeko erabiliko dituzte sosak. Berria - Ekonomia

Beren filosofia **autoenpleguaren** sustatzea dute, erran nahi baita beren artekotasuna emendatzekoa. Herria

Iruñean, berriz, beste hainbat gai jorratuko dituzte: **autoenplegua** , irratsaioak etxeko ordenagailutik egiteko aukera, ekonomiaren demokratizazioa, emozioak [...]. Berria -

Euskal Herria

---

autoeraketa *iz* norberak bere kabuz egindako eraketa. ik **autogestio**; **autoantolakuntza**; **autokudeaketa**.

Baina talde bakoitzaren helburuez haraindi, RRVk **autoeraketaren** aldeko apustua egin zuen gazte mugimendu oso baten ikurra izan zen. Berria - Kultura

Autoeraketa honen oinarriak hauek izan litezke, guztiak ere elkartearen ibilbidean intuizio mailan garatuak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Edo bestela esanda, berezkoak dituen lankidetza, **autoeraketa** eta demokraziaren balioak garatu, edo logika ekonomikoari soilik jarraitu. Iñaki Heras

---

autoeratu, autoera(tu), autoeratzen du *ad* norberak bere kabuz eratu edo antolatu. ik **autogestionatu**.

Beren esparrua **autoeratzearen** aldeko apustua egin du bertsolaritzaren mugimenduak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

autoerotiko *iz* autoerotismoari dagokiona.

Sexologia ere aspalditik ari da primateen, gure senideen jokabide sexualak aztertzen: haien jokaera **autoerotikoa**, iniziazio sexuala, ugalketa, arren eta emeen arteko loturak, umeen hazkuntza, etab. Luis Elberdin

---

autoerotismo *iz* norberak bere buruari eragindako erostismoa.

Autoerotismoa ez da nerabezaroan hasten eta ezkontzerakoan amaitzen. Luis Elberdin

---

autoerreferentzia *iz* norberaren buruari egindako erreferentzia.

Moduak askotarikoak izan daitezke, baina errealitate bera erakusten digute: hizkuntzaren **autoerreferentzia**. Iñaki Arranz

Beste batean, jolasa **autoerreferentziaren** eta literaturaren barruko baliabideen ingurukoa izango da, eta idazleak bere burua irudikatuko du idazkera zehatzaren bilaketa akigarrian. Berria - Kultura

---

autoerregulatu, autoerregula(tu), autoerregulatzen **1** du *ad* nork bere burua erregulatu.

Zorionez, ekonomikoki **autoerregulatzen** den jardun artistikoa da bertsogintza, dirulaguntza berezirik behar eta nahi ez duena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hala bada, prezioen egongaiztasuna lehengaien merkatuek epe laburrera **autoerregulatzeko** duten ahalmen txikiaren ordaina da. Koro Navarro

Izan ere, erradiazioak inguru hurbilean eta eremu jakinetan eragingo lituzke kalteak, baina Lurrak **autoerregulatzeko** duen gaitasuna ez luke hankaz gora jarriko. Berria - Gaiak

2 (partizipio burutua izenondo gisa)

Seguruenik historian izan den fundamentalismorik gogorrena izan da merkatu **autoerregulatuari** buruzko miresmena. Iñaki Heras

---

autoerregulatzaile *iz* norberaren burua erregulatzen duena.

Globalizazioaren kontzeptuak, nazioartekotzearenak ez bezala -iraganean gehiago erabiltzen zen nazioartekotzearen kontzeptua-, mundu osoko merkatu **autoerregulatzaile** baten sorrera azpimarratzen du, kapitalismoaren garaipen unibertsala baino areago. Koro Navarro

Baina, tesi liberalen kontra, merkatuaren mekanismo **autoerregulatzaileak** huts egiten duenean, estatuaren esku-hartzea beharrezkotzat jotzen du. Iñaki Heras

---

autoerregulazio *iz* nork bere burua erregulatzea.

Oinarri duen sorkuntza-jardunak, bertsogintzak, **autoerregulazio** ekonomiko handia baitu bere izaera apalagatik, eta ez du administrazioaren laguntzekiko menpekotasunik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Askotan ez dugu sinesten haurraren **autoerregulazio** sisteman eta baliabideak eman beharrean, bidea gehiegi markatzen diogu. Berria - Euskal Herria

Izugarri errotutako pentsamoldea da, aurretik ere ikusi dugunez, merkatuaren **autoerregulazioarena**. Iñaki Heras

Orain arte, Eusko Jaurlaritzak ez du inolako mugarik ezarri, eta sektorearen **autoerregulazioaren** esku utzi du afera. Berria - Ekonomia

---

autoerretratu *iz* norbaitek bere buruari eginiko erretratua. ik **autorretratu**.

Etxera itzultzean atea jo dut, badaezpadan, eta Josu agertu da **autoerretratu** aurpegiarekin. Joseba Sarrionandia

Hain zuzen ere, **autoerretratu** bat izan ezik, olio guztiak ingurune hartan egindako paisaia inpresionistak dira. Berria - Kultura

Koadroa atsegin zitzaizula esan zenionean, beste bi lan txikiago ere bazituela erantzun zizun, tartean **autoerretratu** bat, gazte zenekoa. Hasier Etxeberria

Santa Catalinaren ezkontza, Diana eta Endimion, Carlos I.aren potreta, Jipoidun gizona, Odescalchiren erretratua, **Autoerretratua**. Javi Cillero

---

autoeskola *(orobat **auto-eskola**) iz* autoak gidatzen erakusten den eskola. ik **autozaingo**.

Gehienak irakasleak, hiru sareetakoak bixtan dena bainan ere AEK-koak, **Autoeskoletakoak** bai eta ere burraso batzu. Herria

Erregelaz egindako auzune dotorea da, kale zabalez eta parkez josia, bizitza gutxikoa, **auto-eskolako** autoz betea egoten da, praktiketan, hortik atera kontuak. Urtzi Urrutikoeetxea

Gipuzkoako **autoeskoletako** langileek lanuzteak egin zituzten atzo, azken sei hilabeteotako "negoziazio antzua salatzeko". Berria - Ekonomia

Bahituak ihes egitea lortu zuen, eta Ertzaintza iritsi arte, **autoeskola** batean gordetzea lortu zuen. Berria - Euskal Herria

Piok, berriz, **auto-eskola** ireki zuela Hernanin Ameriketatik etorri zenean. Xabier Etxabe

Nirekin egon ohi zen lagunak, aurreko astean bezala, aldegin beharra zeukan, ordu hartan izaten baitzuen **auto-eskolako** txanda, esan zidanez. Xabier Mendiguren Elizegi

---

autoestima *iz* norberaren burua estimatzea. ik **autoestimu**.

Hortatik atera, noraino sartua den **autoestima** zorionekoa! Patziku Perurena

Munduan den gauzarik zailena noski, baina gaur egunean, mundu ororen zorionean, **autoestima** izenekoaren industriaren garapen ikusgarriarekin, hagitz erraztua dagoena.

Iñaki Segurola

Jazoera hura larregikoa izan zen gure **autoestimarentzat**. Jon Arretxe

Hormonak dantzan eta **autoestima** haien hankapean dabilen momentua ez da egokiena animaliak garela gogorarazteko. Arantxa Iturbe

Edonoren **autoestima** txikitzeko burutazio hauen ondoren, Cesar Telleriak Cutty Shark botila erdi bat hustu zuen trago bakar batez. Harkaitz Cano

Baina baita konfiantza eta **autoestima** berreskuratu ere. Jasone Osoro

---

autoestimu *iz* norberaren burua estimatzea. ik **autoestima**, **autokontzeptu**.

Izan ere, horiek agerian jartzeak lagunduko digu beldurra galtzen, kulpa sentimenduak gainditzen, **autoestimua** sendotzen, gure nahiak eta grinak beldurrik gabe bizi izaten eta pertsona guztiek zoriontsu izateko duten eskubidea errebindikatzen. Luis Elberdin

Bakardade sentimendu hori norbanakoaren pertsonalitatean larregizko lotsa, **autoestimu** baxua edo besteekin harremanak izateko gaitasun eskasa oinarritutakoa denean, komeni da lehendabizi arazo horiei heltzea. Berria - Gaiak

Irakurketa konpultsiboak, hausnartzaileak, zerbitzuzkoak, plazer hutsekoak, buru eragozgarriak, **autoestimuaren** gizengarriak, modaren agindura burutuak, urari goiti landuak, loguraren kontra eginak. Anjel Lertxundi

Nire zera ezkutalekutik atera nuenean jarri zuen poz aurpegiak nire **autoestimu** guztia itzuli zidan. Juan Martin Elexpuru

Txokotik zabalera sakatuz Irujok Gonzalezen **autoestimua** errekara bota zuen. Berria - Kirola

Hori da nik Oteizari gehien estimatzen diodana: herri txikiok hain exkax izan ohi ditugun autokonfiantza eta **autoestimua** bermatu izana. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **autoestimu tailerra** (3)

---

autoexijentzia *(corpusean ez dago; ETCn **52** agerraldi, horietatik **38** azken sei urteetan) iz* norberak bere buruari ezarritako exijentzia.

Mariasun Landaren kezka nagusiak bi dira: Haur eta Gazte Literatura idazlearen **autoexijentzia** maila urria batetik, eta irakurlearen profilaren ezezagutza, bestetik. ETC-literatura, saiakera

Eta, azken finean, literatura abandonatu nahi bazuen ere, horrek ez du esan nahi, bere **autoexijentzia** -maila ezaguna gorabehera, harro ez zegoenik ordura arte idatzi zituen gauza batzuez. ETC-literatura, saiakera

Nik hala sentitu nuen, norbere ardura artistikoa eta norbere **autoexijentzia** kreatiboa dela. ETC-literatura, saiakera

Bestalde, ikasleen prestakuntza maila hobetzeaz gain, "esfortzu eta **autoexijentzia** ohiturak eragin eta ikasteko ilusioa, motibazioa eta plazera mantendu" behar direla uste du Iztuetak. ETC-prentsa

Maren da batxilergoa ikasten dabilen neska bat, **autoexijentzia** handikoa, gurasoen esana egiten duena beti, eginbeharraren zentzu zorrotza daukana, maila guztietan. ETC-prentsa

Neskek txikitatik garatzen dute **autoexijentzia** maila bat, segurtasunik eza ekartzen duena. ETC-prentsa

Baina **autoexijentzia** intelektual apur bat aplikatuz gero, planteamendu askori zuloak ikusten dizkiot. ETC-prentsa

Ez gara hortik bizi, baina talde askori pasatzen zaiena pasatzen zitzaigun: gure **autoexijentzia** maila profesionala agian ez, baina erdi profesionala izan da. ETC-prentsa

Merezimendu faltaren epaia ere nabarmena da zurean, Uxue, eta, horri lotuta, **autoexijentzia** suntsitzailea. ETC-prentsa

Bana nabarmentzeko eskatuta, "denak" esan zuen bizkor Ibarzabalek: " **autoexijentzia** suntsitzailea" -ri egin zion azpimarra gero. ETC-prentsa

" **Autoexijentzia** eta ardura partekatua" ere ez dira kasualitatez iritsi Arrasatera. ETC-prentsa

Hezigarritasuna 'ahal izan' bat da, 'behar izanera' hurbiltzeko itxaropen bat, perfekziorako **autoexijentzia** bat, 'ni' hobe baten bilaketa amaiezin bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Autoexijentzia beharrezkoa da edozein sormen-arlotan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

autoezagutza *(corpusean ez dago; ETCn **139** agerraldi) iz* nork bere burua ezagutzea.

Sakon-sakonean, nire **autoezagutza** iluna da, barrukoa, adierazi gabea, konplizitate bat bezain ezkutukoa. ETC-literatura, saiakera

Zoru komunaren eraikuntza (Estitxu Eizagirrek emakumera batua deitu ziona), hizkuntza eta erregistro berrien sorkuntza, elkarren ezagutzaren bidezko **autoezagutza** bultzatzen duten gune kreatiboak funtsezkoak dira. ETC-literatura, saiakera

Autoezagutzaren eredu hegeliarrak -Marxek, Lukacsek eta gaur egungo hainbat diskurtso askatzailek bereganatu dutenak- bi "ni"-ren arteko parekotasuna suposatzen du. ETC-literatura, saiakera

Espontaneitate politikoa falta zaio herri honi, **autoezagutza** sakonean eta autoeraketa zorrotzean oinarritua, egoerari erantzuteko sena, historiaren gaurkotasunean zer eta noiz den posible antzemateko abilezia. ETC-literatura, saiakera

Dimentsio pertsonala zaintzeari eta **autoezagutzari** garrantzia ematen diote elkarrizketatu guztiek. ETC-prentsa

Arte plastikoak, eskulanak, arte eszenikoak, irudia, soinua eta komunikazioa, **autoezagutza** eta osasuna, eta literatura landu ahal izango dituzte ikastaroetan izena ematen duten helduek, gazteek eta haurrek. ETC-prentsa

Hala, **autoezagutza** eta yoga ikastaroak egin ditu, besteak beste. ETC-prentsa

Hedabide, telesail, film, aldizkari espezializatu, psikologo, **autoezagutzaren** ikastaroak eta abarren izurriak zoriona zinez izorratu duela esango nuke. ETC-prentsa

Kontzientziaz hitz egitean, alde batetik, norbere esperientziaren ezagutzaz edo **autoezagutzaz** ari gara, eta, beste alde batetik, ernetasun-mailaz ari gara. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zoru komunaren eraikuntza (Estitxu Eizagirrek emakumera batua deitu ziona), hizkuntza eta erregistro berrien sorkuntza, elkarren ezagutzaren bidezko **autoezagutza** bultzatzen dituzten gune kreatiboak eta funtsezkoak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zerbitzu-ikaskuntzak komunitateari egindako zerbitzua hezkuntzarekin eta **autoezagutzarekin** integratzen du. ETC-entziklopedia

---

autofede *iz* fede autoa. ikus **auto²** 3; **fede** 10; **autodafe**.

Ordea, baldin eskarmentua bazen **autofede** haien xede nagusia, zalantzarik ez dut ezen Urbiaingoak ere osoki eta konplituki egin zuela bere xede hartarako bidea. Joan Mari Irigoien

Zezenketa eta **autofedeek** erakutsi zioten Espainia nazio "ankerra" zela eta ildo berean baieztatu zuen alemanek "mekanizismoa" maitatzen zutela, bai gobernuan bai armadan. Berria - Kultura

---

autofikzio *(ETCn **102** agerraldi, horietatik **52** azken sei urteetan) iz* egilea, narratzailea eta protagonista bat-bera dituen eleberri mota.

Autokontrolaren eta dispertsioaren artean mugitzeak **autofikzioak** eraikitzen lagundu dio beti, eta, ondorioz, istoriak lapurtzen dituela onartzen du. Berria - Kultura

autofinantzaketa *(ETCn **274** agerraldi; orobat **autofinantzazio** ETCn **51** agerraldi eta **autofinantziazio** ETCn **35** agerraldi) iz* autofinantzatzea. ik **autofinantzazio**; **autofinantziazio**.

Bestetik, alderdi ekonomikoari erreparatuz gero, betikoa da, dugunarekin konformatu behar, ahaleginak egiten ditugu **autofinantzaketa** ahalik eta handiena izateko, baina gure hanka herrena horixe dela esango nuke, finantzaketa. Berria - Euskal Herria

Horren ondorioz, konkurrentzia are zorrotzagoa da, murriztu egin baita usadiozko bezeroen (enpresen) kreditu-eskaera, hobetu egiten baita enpresen **autofinantzaketa**. Koro Navarro

Harpidetzen diru sarrerekin soilik **autofinantzaketa** maila batera iristeko, milaka harpidedun behar litzateke. Berria - Mundua

---

autofinantzatu, autofinantza, autofinantzatzen du *ad* norberaren burua finantzatu.

Diru sarreretan kuotek duten pisua %3,30 handitu izanak ahalbidetu du **autofinantzatzeko** ahalmenaren hazkunde hori. Berria - Ekonomia

Modu horretan, pixkanaka **autofinantzatzen** hasteko asmoa dute. Berria - Kultura

---

autofinantzazio *(corpusean ez dago; ETCn **51** agerraldi; orobat **autofinantziazio** ETCn **35** agerraldi eta **autofinantzaketa** ETCn **274** agerraldi) iz* nork bere burua finantzatzea. ik **autofinantzaketa**; **autofinantziazio**.

Finantzetan, autofinantzaketa edo **autofinantzazioa** enpresa, inbertsio, proiektu edo jarduera batek behar dituen finantza-beharren berezko estaldura adierazten duen terminoa da, mailegu, kreditu eta bestelako kanpoko finantza-baliabiderik erabili gabe. ETC-entziklopedia

Gazte asanbladak kudeatzen du gaur egun kartzela zaharra, autogestio eta **autofinantzazio** ideien baitan. ETC-entziklopedia

Enpresak **autofinantzazioa** ere egin dezake, irabazien zati bat kapital-baliabideak osatzera eramanez edo amortizazioaren bitartez esaterako. ETC-entziklopedia

Autoelikadura eta **autofinantzazioaren** ilusioan iparra jarriz, hamabost hektarea nekazaritza ekologikoan abiarazten ari dira. ETC-literatura, saiakera

Hirietako emakume laborariek elkarrengandik ikasten dute, eta elkar behatuz lortzen dute **autofinantzazio**-maila handiagoa erdiesteko kemena. ETC-literatura, saiakera

Baina leku garrantzitsuena kontzertuek izaten dute, alde batetik gustukoa dutelako, eta bestetik, **autofinantzazioan** diru iturri garrantzitsuena delako. ETC-prentsa

Badirudi ingeles edo frantses akademia bailitzan jotzen dela; izan ere, **autofinantzazioa** lortu behar omen dugu, eta, hortaz, matrikulak igotzen jarraitu behar. ETC-prentsa

Autofinantzazioa %70-75ekoa izango dela aurreikusten da. ETC-prentsa

Hortaz, hiltegiek eurek aurkitu behar dute **autofinantzazioa**. ETC-prentsa

Museoa jaio zeneko helburuetako bat **autofinantzazioa** izan zen. ETC-prentsa

Norbanakoen multzoa batzen du Milakabilakak, eta beraz, **autofinantzazioa** da beraien sistema. ETC-prentsa

Kreditu ohikoak eskuratu ezinda dauden emakume behartsuei **autofinantzazioa** lortzeko aukera ematen diete mikrokredituek. ETC-prentsa

Liburuaren salmentarekin **autofinantzazioa** lortu nahi dugu, bai erakusketa eta bai dokumentala egin ahal izateko. ETC-prentsa

Erabakia polemikoa izan zen, eta auzian dago oraindik, aurreko atalean azaldu den moduan, batez ere kontuan hartuta irratiaren bideragarritasun ekonomikoa -**autofinantzazioa**- kolokan dagoela, eta, beste aldetik, euskararen presentzia testimoniala dela. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

autofinantziazio *(corpusean ez dago; ETCn **35** agerraldi; orobat **autofinantzazio** ETCn **51** agerraldi eta **autofinantzaketa** ETCn **274** agerraldi) iz* nork bere burua finantzatzea. ik **autofinantzaketa**; **autofinantzazio**.

Gaurko egunean ere, burasoen gehiengo nagusiak ikastolaren besta batzordean dihardu, **autofinantziazioak** kezkaturik, eta esku-kolpe bat zintzoki emanez, taloak errez zein baso berriak betez, herriko plazan zein Senpereko lakuan. ETC-literatura, saiakera

Alaves Fundazioak 200 milioi pezeta inguruko aurrekontua du eta helburua ahalik eta **autofinantziazio** mailarik altuena lortzea da. ETC-prentsa

Aspaldidanik zuten elkartekideek hori buruan, beti ere **autofinantziazioan** urratsak emate aldera. ETC-prentsa

Komunikazio proiektuen **autofinantziazioa** geroz eta handiagoa dela jakin badakigu, eta bide horretan ari gara lanean, Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza gero eta proiektu sendoagoa delako, baina, oraindik ere, diru laguntza izatea beharrezkoa dugu. ETC-prentsa

Orain arteko estrategiaren analisia egin, eta aurrera begira irakurle berriak erakartzeko, **autofinantziazioa** areagotzeko, eskaintza zabaltzeko, proiektu berriak sustatzeko... zer egin eta nola joka dezakegun aztertzea beharrezko ikusten dugu. ETC-prentsa

Zentroak eskainiko dituen zerbitzuei esker **autofinantziazioa** lortzea da Baketik-en helburua. ETC-prentsa

Batetik, **autofinantziazio**-maila (publizitatearen sarrerak batez ere) gehitzeko arazoak dituztelako, jende gutxi ari baita ekonomia-esparrua kudeatzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Enpresen kasuan, enpresen **autofinantziazioan**, ekoizpen-tekniketan, enpresen kokapenetan eta enpresen kontzentrazio mailan ere izango du eragina zergen politikak. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

autogeno *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)* **1** *izond* emailea eta jasotzailea pertsona bera denean; soldatze teknika berezia.

Jesuiten gogo-jardunak, izan ere, hogeita hamar gau eta eguneko kontzentraziozko training **autogeno** ezin zorrotzagoak dira, bere garaian, norbere ariketan oinarrituriko Europa zaharreko kulturen geruza pilatuen artean berrienak. ETC-literatura, saiakera

Elektroi autonomo eta **autogenoaren** figura askoz gehiago interesatzen zait. ETC-prentsa

Drainatze **autogenoaren** teknikarekin alderatu denean, berriz, antzeko eraginkortasuna neurtu da. ETC-entziklopedia

Bigarren mugimendu modua lekualdatze **autogeno** edo aktiboen ondorioz dator, dela gorputza bera kanpoko inguruneen mugituz, dela kanpoko inguruneko objektuak mugiaraziz: lokomozioa eta oratzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***soldadura autogeno*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Oxiazetileno soldadura, **soldadura autogeno** mota bat da. Soldadura homogeneoa edo soldadura heterogeneoa bezala gauzatu daiteke, ekarpen materiala oinarrizko materialaren antzekoa den arabera, edota material ekarpenik gabe **soldadura autogeno** gisa. ETC-entziklopedia

---

autogestio *iz* enpresa, erakunde edo elkarte bateko kudeaketa bertako langileek egitea. ik **autokudeaketa**; **autoantolakuntza**; **autoeraketa**.

Beste muturrean daude **autogestioak** ematen dituen baliabideak bideratzea nahi dutenak. Iñaki Heras

1997ko abendoaz geroz jo ta ke ari da bere ekitaldietan, **autogestio** moduko kudeantzan, bereziki kontzertuak antolatuz. Herria

Ingurumenaren aldeko politikak garatu behar dira, eraldaketaren aldeko egitura berriak sortzeko eta **autogestioa** oinarri duten garapen ereduak sustatzeko. Berria - Mundua

---

autogestionario **1** *izond* autogestionatzen denaren nolakotasuna.

Mugimendu asanbleario eta **autogestionario** guztien oinarrian dago Parisko Komuna, eta eragin handia izan zuen Marx, Lenin eta Stalinengan ere. Berria - Kultura

2 ***sozialismo autogestionario*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ez sobietarren aldeko eta ez txekiazale, gurago kibutzetako **sozialismo autogestionarioa**. ETC-prentsa

Hau da, pentsaera horrek tradizionalismoaren defentsatik hasi eta **sozialismo autogestionarioa** aldarrikatzeraino izan duen bilakaera azaldu du. ETC-prentsa

Sozialismo autogestionarioaren eta demokraten bidea hartu zuen karlismoaren adar nagusia makurrarazi nahi zen modu horretan. ETC-prentsa

3 ***sozialista autogestionario*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Izan ere, 1970az geroztik, izan zuten bilakaera politiko-ideologikoa zela medio, euren burua "**sozialista autogestionariotzat**" jo zuten. ETC-prentsa

Biltzarrerako bi korronteko erakundea eratzea proposatu zien: bata marxista-leninista, eta bestea **sozialista autogestionarioa**. ETC-prentsa

---

autogestionatu, autogestiona, autogestionatzen *(ETCn **835** agerraldi, horietatik **502** azken sei urteetan)* **1** da *ad* enpresa, erakunde edo elkarte bateko kudeaketa bertako langile edo kideek egin.

Iruñeko Euskal Jai gaztetxearekiko elkartasuna adierazi eta Gipuzkoako hiriburuan ere gazteentzako gune **autogestionatuak** behar direla nabarmendu nahi zuten. Berria - Euskal Herria

2 (partizipio burutua izenondo gisa)

Oro har, Bizkaiko gaztetxeen eta gune **autogestionatuen** aldeko aldarria zabaldu nahi zuten. Berria - Euskal Herria

---

autogidari ik **auto**[1]; **gidari**.

---

autogile *izond/iz* autoak egiten dituena.

Mercedes aleman **autogileak** eta Daimler Krysler konpainiak lanak dituzte beren markako auto famatuekin. Herria

Asko zegoen jokoan, **autogileen** txapelketa barne. Berria - Kirola

Fitch ratin agentziak iragarri du, "enpresa **autogileak** mozkin eta likidezia maila apalak" eskuratuko dituela. Berria - Ekonomia

---

autogintza *iz* autoak eta kideko ibilgailu motordunak egitea; autoen eta kideko ibilgailu motordunen industria.

Bere lan alorrean munduko liderra den Aisin Takakoa izeneko japoniar enpresak **autogintzarako** piezak egiten ditu bereziki. Herria

Lehen baino askoz gehiago mugitzen gara, eta Europako hegoaldeko hainbat herrialdetan ekonomiaren motorretako bat **autogintza** denez, ez da garraio publikoa bultzatzen. Berria - Gaiak

Horrela gertatuko ez balitz, **autogintza** konpainiak ekoizpen fabrika nagusiak Bremen hirira eta Hegoafrikara eramango zituela mehatxatu zien langileei. Berria - Ekonomia

---

autogobernu *iz* herri edo erakunde batek, berak erabakitako lege edo arauen bidez, bere burua gobernatzea.

Eredu eta irtenbide desberdinak kontuan har daitezke, Euskadiren "arima" biziberritzeko behar besteko **autogobernua** eskuratzen bada. Joseba Zulaika

Gainera, **autogobernuaren** defendatzaile moduan agertu nahi duen gobernu baten jarrera eta norabide politikoan galera dakar kontseiluaren araudiak. Berria - Ekonomia

Aznarren esanetan, inoizko **autogobernu** mailarik handiena da egungoa, eta ez dago eskubiderik gehiago eskatzeko. Joxerra Garzia

Nafarroako **autogobernuaren** eta eskubide historikoen aurkako manifestazio dela iritzi dio eta UPNri Nafarroaren izaerarekin "desleial" izatea leporatu dio. Berria - Euskal Herria

---

autogorroto *(ETCn **77** agerraldi, horietatik **40** azken sei urteetan) iz* norbere buruarekiko gorrotoa.

Mahaikideak esan zuenez, Nafarroako Gobernua itsuki "tematuta" dago ikurrekin, eta horren azalpena "**autogorrotoa**" da. Berria - Euskal Herria

Gerraondo triste beldurrez ikaratu bat; eskolako maisu falangista, euskararen erdeinua eta euskaldunaren **autogorrotoa** irakasten soilik aditu iaioa. Joxe Azurmendi

Baina gure artean inork apurtzen ez zuen isiltasunak garbi erakusten zuen arazoak ez zuela zerikusirik euskararen aldaera diatopiko edo diakronikoekin, ez erdararen presioak eragindako isoglosa-ezabatze tamalgarri batekin, ez euskal bokalismoaren galerarekin, ez **autogorrotozko** agerpen batekin, ezta mintzagaiaren auzi ia-metafisiko eta hainbeste eta hainbeste aldiz eztabaidatuarekin ere. Jon Alonso

---

autografo **1** *izond* testuez mintzatuz, egileak bere eskuz idatzia.

Baina kontua duk nik mezutxo **autografo** hori aurkitu nuela, eta idazki laburrak liburuak baino mila bider gehiago balio duela, horra. Anjel Lertxundi

Anai Leoni Bedeinkazioa sail honetan sartzen da, Jainko gorenaren Gorespenak idazkia dakarren eskuizkribu **autografo** bereko atzealdean datorrelako. Askoren artean

2 (izen gisa)

Hark idatzitako **autografo** batean honela dio. J.M. Olaizola "Txiliku"

Autografo eta eskuizkribu bildumak egiten zituen, zaharkinak erosten zituen, xake klubetako kide zen, eta gourmet eta Don Juantzat jotzen zuen bere burua. Koro Navarro

Liburu bitxien, **autografoen** eta literatur bitxikerien saltzaile txiki baina errespetatua naiz. Oskar Arana

3 *iz* pertsona ospetsu edo garrantzitsu baten sinadura.

Jende oldeak jarraitzen zion kotxeari, txalo joz; neska xarmagarriek beraganaino eskalatzen zuten **autografo** bat lortzeko. Julen Gabiria

Autografo bila ere hurbildu izan zitzaizkidan behin baino gehiagotan umeak, bezperan telebisioan edo aldizkariren batean ikusi nindutela eta. Hasier Etxeberria

Unax Ugalderi **autografoak** eskatzen dizkioten bitartean, "patxadan eta hunkiturik" hitz egiten du Pablo Malok. Berria - Kultura

Talde handietako ikuskatzaileen zorion askotarikoak, bere bizitzako lehen kontratu profesionala, haurrak **autografo** eske etortzen zitzaizkioneko arratsaldeak. Aritz Gorrotxategi

Eta neskek oihukatzen zuten, gizonek **autografoak** eskatzen zizkiguten... Zinema izarrak izan bagina bezala! Ramuntxo Etxeberri

Irtetean, plazako atzeko atetik hain zuzen, tai gabe **autografoak** sinatzen jardun zuen. Edorta Jimenez

Schroeder **autografoak** sinatzen ari zen, erasotzailea jendearen artetik atera zenean. Berria - Mundua

---

autohornikuntza *iz* norbere buruaren hornikuntza.

Urdaibaiko biosfera erreserbaren eremuan **autohornikuntza** elektrikoa izango dute 2010 urterako. Berria - Euskal Herria

---

autoikaskuntza *iz* norberak bere kabuz, metodo batek gidatuta eta irakaslerik gabe, egiten duen ikaskuntza.

Autoikaskuntzarako sistemak ere abian ditu. Berria - Euskal Herria

Euskaltegiez gain, euskara alorreko **autoikaskuntza** zentroak ere diruz lagunduko dira bertan dioenaren arabera, eta ikasleentzako diru laguntzak aurreikusi dira. Berria - Euskal Herria

---

autoimmune 1 *iz* norberaren immunitate-sistemak berak sortzen duena eta gorputzeko zelulei erasotzen diena.

Ben Watt, nolabait esateko, **"autoimmune"** bihurtu zen: bere defentsak hasi ziren bere buruaren kontra borrokan. Iban Zaldua

Bestetik, elikagai jakin batekiko jasanezintasunari, alergiei edo urdail eta heste arteko gaixotasun **autoimmuneei** zelan eragiten dien jakin gura dugu Berria - Gaiak

2 ***gaitz autoimmune*** *(corpusean ez dago; ETCn **64** agerraldi)*

Gaitz autoimmune bat dagoenean organismoak ehunek eta organoek dituzten azaleko antigenoen aurkako antigorputzak ekoizten ditu. ETC-entziklopedia

Urretabizkaiaren kasuan idazteak bizirautearen eta bizitzearen arteko aldea markatzen du, Mintegi idatzi ezean hilik sentitzen da, Jaiok ezin idaztearekin lotzen du pairatzen duen **gaitz autoimmunea**, Alberdik gorputzean erreakzio bat sortzen dionari buruz idazten du maiz. ETC-literatura, saiakera

Gaitz autoimmuneetan eragina duen gene bat aurkitu du EHUko ikertalde batek. ETC-prentsa

Gaitz autoimmuneen muineko giltzarriak argitzen ari da EHUko ikertalde bat. ETC-prentsa

Orain ikertzen ari diren geneak, esaterako, **gaitz autoimmuneak** ulertzen lagun dezake. ETC-prentsa

Gaitz autoimmuneak -esklerosi anitza, artritis erreumatikoa, Crohnen gaitza, lupusa...- jota dauden gaixoengan ohi baino Alfa FTN kantitate handiagoak aurkitu izan dituzte medikuek. ETC-prentsa

Crohn-en gaixotasuna **gaitz autoimmune** kronikoa da, heste-traktuaren hantura eragiten duena. ETC-prentsa

Glutenarekiko intolerantzia izateak dakarren **gaitz autoimmunea** da zeliakia, eta populazioaren %2ri eragiten dio. ETC-prentsa

Berriro aktibatutako klon horiek **gaitz autoimmuneekin** erlazionatuta daude askotan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina atal birformulatzailean zenbait kasutan aktibatu eta **gaitz autoimmuneak** eragin ditzaketela adierazten da, kontrakoa ezeze harrigarria ere izan daitekeena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aipatu dugun bezala, disbiosia gaixotasun batzuen atzean dagoela proposatu da berriki: jatorri argia ez duten gaixotasun batzuen atzean, hain zuzen (**gaitz autoimmuneak**, depresioa, minbizia mota batzuk...). ETC-zientzia, zuzenbidea

3 ***gaixotasun autoimmune***

Bestetik, elikagai jakin batekiko jasanezintasunari, alergiei edo urdail eta heste arteko **gaixotasun autoimmuneei** zelan eragiten dien jakin gura dugu. Berria - Gaiak

4 ***hepatitis autoimmune*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Hepatitis autoimmunea gibela kaltetzen duen gaixotasun autoimmunea da. Gaitz honetan, immunitate-sistemak eraso egiten die gibeleko zeluletan (hepatozitoetan) dauden azaleko antigenoei. ETC-entziklopedia

---

autoindukzio *(corpusean ez dago; ETCn **64** agerraldi) iz* zenbait sistema fisikotan ematen den fenomeno elektromagnetikoa; substantzia batek bere metabolismoari eragitea.

3 mH-ko **autoindukzio** -koefizientea duen haril batetik igarotzen den korrontearen intentsitatea irudian azaldu da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Autoindukzio -fenomenoa dela eta, argi dago itsasoan aske bizi diren bakterio lumineszenteek ez dutela argirik igorriko, autoinduzitzailea ezin baita haien inguruan pilatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina jakin badakigu korronte elektrikoek **autoindukzio** deitzen den inertzia mota berezia dutela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Farmako batek bere metabolismoa estimulatzen badu, **autoindukzio** esaten zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Harila, bobina edo induktorea energia eremu magnetiko moduan biltegiratzen duen zirkuitu elektriko baten sendagai osagai pasiboa da, **autoindukzio** -fenomenoa baliatzen duena. ETC-entziklopedia

N-1fracdvarphi-ddt=L-1fracdi-1dt non L1 baita **autoindukzio** -koefiziente konstante bat, hain zuzen ere ihes fluxuaren bide nagusia airea baita. ETC-entziklopedia

Baudotek, elektroimanen zirkuitu magnetikoak hobetu zituen, ahal bezain beste **autoindukzio** bizkarroiak murriztuz, bulkada laburragoak erabiltzea ahalbidetzen zuena. ETC-entziklopedia

---

autoinkulpatu, autoinkulpa(tu), autoinkulpatzen da *ad* nork bere burua errudun jo.

Gorostiagak bi urte egin zituen espetxean, hilketa batean **autoinkulpatu** zelako. Berria - Euskal Herria

---

autoinkulpazio *iz* norberaren burua errudun joz egindako aitorpena.

Ezin dugu ahaztu polizia etxean lortutako **autoinkulpazio** horiek inkomunikazioaren ondorio direla. Berria - Euskal Herria

---

autoironia *(corpusean ez dago; ETCn **54** agerraldi) iz* norbere buruaz erabilitako ironia.

Autoironiaz baina samurtasunez mintzatu ginen gaztetako kantuez eta ametsez. ETC-literatura, saiakera

Eta ez didak esango ironia ez daukanik, are **autoironia** pixka bat ere. ETC-literatura, saiakera

Descartes beldur da automatek iruzur egingo dioten; Hoffmanek, ordea, zera ematen digu aditzera **autoironia** eredugarri batez: ETC-literatura, saiakera

Gero eta absurdoago, umorez gero eta zirtolariago, **autoironiaz** gero eta krudelago egiten dut lan. ETC-literatura, saiakera

Ironiaz esan behar ditugu gauzak, eta **autoironiaz** batez ere. ETC-prentsa

Autoironia zentzua falta zaiok, eta absurdurako joera handiagoa. ETC-prentsa

Bizitzaren alderdirik ilun eta gordinenei umore beltzez, sarkasmoz eta **autoironiaz** begiratzen die Karlos Linazasorok. ETC-prentsa

Gainera, badago horren inguruko **autoironia** ere nobelan, zure aurreko beste testu askotan bezala. ETC-prentsa

Eta nire egoeraren inguruan **autoironia** erabiltzeko egokia iruditu zitzaidan. ETC-prentsa

"Bereziki aipagarria da sentipenak eta natura uztartzeko era dotorea, bai eta maitasuna eta paradisu galduak nostalgiaz kantatzerakoan darabilen **autoironia** ere". ETC-prentsa

Hala arrazoitu du Linazasorok bere **autoironiaren** beharra: "Nork bere buruarekin erabiliz gero, zilegi da gainerakoekin ere ironia erabiltzea". ETC-zientzia, zuzenbidea

Bertsolariok ere barre gehiago egiten dugu, bertso umoretsu gehiago kantatzen ditugu, **autoironia** gehiago egiten dugu, ez gara hain neurritsuak izaten, egokitasunaren marrak errazago gainditzen ditugu, elkarrekin maitakorragoak izaten gara... ETC-zientzia, zuzenbidea

Egileak berak, liburuan ironia handia dagoela azpimarratu zuen, umorea ere bai, baina batik bat ironia, **autoironia**. ETC-entziklopedia

---

autoirudi *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi)* *iz* nork bere buruaz egindako irudia.

Alderantziz gertatuko da, bere pribilegio mailari 'langile aurrerakoi' **autoirudiarekin** eusteko egin beharreko doikuntza ideologiko guztiak egingo ditu. ETC-literatura, saiakera

Erresonantzia kutxa indartzeko eta **autoirudi** guregainak elikatzeko ezinbesteko sektorea da. ETC-literatura, saiakera

Izan ere, txikituta utzi zuen garaiko gizartearen **autoirudi** zintzo jator ustekoa. ETC-literatura, saiakera

Ongi eta denboran zehar, jarraian eta egoki erabilitako hiru hitz horiek bide luzea egin dezakete herri batek bere hizkuntzaz egin dezakeen **autoirudian**. ETC-literatura, saiakera

Ikurrok ez dira lagunei erakusteko, norbere **autoirudi** puskatuaren zatiak josten laguntzeko baizik. ETC-prentsa

Maila lokaleko telebistek lagun dezakete, Edorta Aranaren ustez, "komunitatearen **autoirudia**" sendotzen. ETC-prentsa

Eta badaude, bai, adibideak, Santurtziko portuko gertaeretatik Pasaiakoan ontzietan heltzen diren ezkutukoei ematen dizkieten astinduetara, gure **autoirudi** gardenak zurikeria besterik ez dela pentsatzeko. ETC-prentsa

Sozialki zer egin daiteke **autoirudi** osasuntsuago bat eraikitzeko? . ETC-prentsa

Beharrezko zaizkigu gure **autoirudia** sortzeko, pertsona eta jendarte bezala. ETC-prentsa

Alor espezifiko bakoitzak **autoirudi** eta autokontzeptu orokorrean izan lezakeen garrantzia gizarte-ingurunean balio horrek duen garrantziaren arabera aldatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horregatik, sexualitatea, **autoirudia** eta autoestimua, antzutasunetik ezberdindu beharko ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

autoitzulpen *(ETCn **153** agerraldi, horietatik **128** azken sei urteetan)* *iz* norberak idatzitakoa norberak beste hizkuntzetara itzultzea.

Borondatez eta gustura egiten ditut **autoitzulpenak**, abantailak ikusten dizkiot. Ana Urkiza

---

autoizendatu, autoizenda, autoizendatzen du *ad* norberak bere burua izendatu.

Bihar bere auziaren azkeneko orduak izango ditu tipo ohoragarri batek, dominaz beteta agertzen diren batzuei sinistuz gero bederen, han eta hemen, "Frantziako Estatuko gobernu" **autoizendatzen** zen agintaritza baten mendean. Josu Zabaleta

---

autoizendatze *iz* norberak bere burua izendatzea.

Saioak iraun zuen 48 ordu doi haietan kontu ugari gertatu ziren: aginte konstituzionalaren eraispena (Chávez kargutik kenduz); enpresarien buru Pedro Carmonaren **autoizendatzea** presidente kargurako eta, azkenean, ordenamendu konstituzionalaren berrezartzea (Hugo Chávez-en itzulerarekin). Txema Ramirez de la Piscina

---

autokar *iz* autobusa.

Autokarrak gure beha zeuden. Marzel Etxehandi

Alkate jator batek, bere udaletxe aurrean ikustearekin aspertu eta, hamar familia, **autokar** batean sartu eta, hantxe utzi zituen. Pablo Sastre

Egun goxo baten iragaitera joan dira 30 lagun **autokarrean**. Herria

---

autokarabana **1** *iz* barrualdea etxebizitza baten moduan antolatua duen ibilgailu motorduna. ik **karabana**.

Azken asteetan auto eta **autokarabana** ugarik zehakatu dute Euskal Herria hegoaldetik iparraldera, hurrenez hurren, Italiakoak, Alemaniakoak eta Frantziakoak. Berria - Kirola

Gipuzkoan, berriz, militante bat bere **autokarabanarekin** dabil herriz herri, eta bidean gurutzatzen dituen autoetatik ukabila altxatuta agurtu izan dutela esan zuen. Berria - Euskal Herria

2 *iz* automobilez berariaz osatutako ilara, eskuarki protesta moduan antolatua.

Autokarabana Txorierrin zehar Barakaldoraino. Berria - Ekonomia

---

autokartera *iz* burtsaz mintzatuz, norbere izenean diren akzioen multzoa.

BBVAk **autokartera** %0,258 igotzea lortu du, bere milioi bat akzio erosita. Berria - Ekonomia

Zeltia bioteknologia enpresak **autokarteran** zituen milioi erdi akzio saldu dizkio Gipuzkoa Donostia Kutxari, 5,56na eurotan. Berria - Ekonomia

---

autoklabe *iz* hermetikoki ixten den ontzia, egosketak edo esterilizazioak presio eta tenperatura altuan egiteko erabiltzen dena.

Autoklabea eta orratzak behar bezala zaindu ezean, infekzioren bat hartzeko moduan zaude. Javi Cillero

Erabilera bakarreko paperezko toailak, lixiba bereziak, **autoklabea**, etc. Edorta Agirre

---

autokolanta *iz* eranskailua, itsasgarria. ik **pegatina**.

Bai, tabakoa erretzea debekatzen duten **autokolantak** badira, murruetan. Berria - Harian

Horretarako **autokolanta** bat proposatuko du, frantses hutsean. Berria - Euskal Herria

---

autokonfiantza *(orobat **autokonfidantza**)* *iz* nork bere buruaz duen konfiantza.

Hori da nik Oteizari gehien estimatzen diodana: herri txikiok hain exkax izan ohi ditugun **autokonfiantza** eta autoestimua bermatu izana. Joxerra Garzia

Horrelakoetan galtzen da, neurri batean, konfidantza eta **autokonfidantza**. Andoni Egaña

Ping-ponga **autokonfiantzazko** arazoa da, ez besterik. Joxe Austin Arrieta

---

autokonfidantza ik **autokonfiantza**.

---

autokonplazentzia *(corpusean ez dago; ETCn **57** agerraldi, horietatik **40** azken sei urteetan) iz* norbere ekintza edo izaerarekiko gogobetetasuna.

Euskararen modernizazioaren kontra 1901ean Bilboko hitzaldian eta beste askotan esan zituenak esanda, behartu egin zituen euskaldunak apologisten **autokonplazentzia** utzi eta askozaz ere benetakoago eta argiago jardutera. ETC-literatura, saiakera

Antzerkirik ez da hor, baina **autokonplazentzia**, segurtasuna hautu ona egin dugula, euskaldun egon daitekeela erraztasuna hautatuz, abertzaleen hautuak ez eginez eta egunero frantsesez mintzatuz. ETC-literatura, saiakera

Seguru espontaneo antzera atera zitzaizula, baina zure lagun eta senide guztiek ezagutuko zituzten Minskeko mozkortia eta zure **autokonplazentzia**, larunbat hartako egunkaria zabaltzerakoan. ETC-literatura, saiakera

Euskal herria euskaradunen herria dela, edo izan zela, edo izan beharko lukeela, baina hori **autokonplazentzia** eta demagogia bihur daiteke praktikan. ETC-literatura, saiakera

Autokonplazentziazko uste sendo horrekin alde egin zuen Catherinek, eta haren erabaki konplituaren arrakasta begien bistakoa zen biharamunean. ETC-literatura, saiakera

Baina, betikoa, horrek epelkeriak, **autokonplazentziak** eta ez-ausardia alde batera laga eta kontsentimenduaz haratago, konbentzimenduz eta koherentziaz jarduteko eskatuko digu. ETC-prentsa

Irakasleak "irlandarron **autokonplazentzia** " gogor astindu eta mende berrion "beste diaspora batzuetatik ikasi beharra" dutela esan zuen atzo eguerdian Gasteizen egindako saioan. ETC-prentsa

Taldearen kantuetan inspirazio gutxi eta Julianen jarreran **autokonplazentzia** gehiegi antzeman genuen. ETC-prentsa

Nola izan zorrotza, nola baztertu **autokonplazentzia**, gutxi bagara, elkar sarri ikusten badugu, nola sortu gurinik gabeko miresmena. ETC-prentsa

Zorrotza da, oro har, Arlten begirada, eta salatzen ditu erlijioaren pisua, pentsamendu kritikoaren eskasia eta gehiegizko **autokonplazentzia**. ETC-prentsa

Autokonplazentzia igual izango da, baina euskarazko liburu, disko, aldizkari, kultur emanaldi zuzeneko... on asko sumatzen dut nik inguruan. ETC-prentsa

Zutabe hau bera ere, autoparodia ilusorio bat baino ez da izan, **autokonplazentzia** ariketa bat. ETC-prentsa

Baina, kontuz, euskara juridikoaren aldeko bidean, **autokonplazentzia** oso bidelagun okerra izango litzateke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Autokonplazentzia, hori da zioa, nahiz eta txarra daukan konnotazioa, masturbazioa nire pasioa, ez dut bilatzen zuen aprobazioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

autokontrol *iz* norberaren erreakzio, bulkada eta emozioen kontrola.

Abandonua eta **autokontrola** sormenaren ordezko alternatiboak dira; desertzioa eta martirioa mimesiaren dizipulutzaren ordezkoak. Iñaki Mendiguren

Autokontrolaren eta dispertsioaren artean mugitzeak autofikzioak eraikitzen lagundu dio beti, eta, ondorioz, istoriak lapurtzen dituela onartzen du. Berria - Kultura

Baina Lukrezio **autokontrolaren** ikuskeran bereizten da bere garaikideengandik. Xabier Amuriza

Errepresioa, autorrepresioa, kontrola, **autokontrola**, lana, kastitatea, menpetasuna, diziplina, dira oinarrizko irizpideak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

autokontsumo *(corpusean ez dago; ETCn **387** agerraldi, horietatik **268** azken sei urteetan) iz* norberak ekoitzitakoa kontsumitzea.

Erpin batean **autokontsumoa** eta elikadura-burujabetzaren intuizioak. ETC-literatura, saiakera

Harkaitz: **Autokontsumo** gogo-ase baten sintomak ere ematen dira... ETC-literatura, saiakera

Merkatutik elikatuko zen, **autokontsumoa** asko murriztuz. ETC-literatura, saiakera

Autokontsumoari lotuta asko errepikatzen da galdera hori: 'Zertarako?'. ETC-literatura, saiakera

Garaiko feminista marxistek etxeko lanak jarri zituzten emakumearen zapalkuntza materialaren oinarrian, lan horiek **autokontsumorako** -eta ez merkataritza trukerako- ondasun eta zerbitzuak sortzen dituen lan mota gisa ulertuta hein handi batean. ETC-literatura, saiakera

Horrela, **autokontsumora** begirako nekazaritza egitera bultzatzen ditugu; eta, eguneko elikagaia ziurtatzean, hasi daitezela salmentarako lantzen. ETC-prentsa

Lizarraldeko ekoizpen ia osoa **autokontsumorako** erabiltzen da, Mendia errotako 3.400 bazkideen artean banatzen baita. ETC-prentsa

Holandako kafetegi berezi horietan baimenduta dago marihuana erretzea eta baita **autokontsumorako** erostea ere. ETC-prentsa

Ez da **autokontsumoko** jaialdi bat izango, emakumeek egindako kultura baloratzeko ekitaldia baizik. ETC-prentsa

Laborantza Ganberakoek oraingoz ez dute erregai mota hori **autokontsumoaz** urrunago hedatzeko asmorik. ETC-prentsa

Hala, hiru kilometroko babes gunean ez dago hegazti ustiategirik, baina 25 baserritan oiloak eta oilaskoak dituzte **autokontsumorako**. ETC-prentsa

Gipuzkoako barazkigintzaren ekoizpena, kasu askotan, abeltzaintza jarduera nagusi daukaten baserrien osagarri da, batik bat **autokontsumorako** baratze eta fruta arbolekin. ETC-prentsa

Energia berriztagarrien bidezko **autokontsumoa** zigortzea izan du ondorio, eta arautegi berria labirinto burokratiko bihurtzea, zirrikiturik gera ez dadin. ETC-prentsa

Azkenaldian inguruko herri askotan sortu dira herri baratzeak **autokontsumoa** eta ekoizpen ekologikoa bultzatzeko: Gasteizen, Arrasaten, Etxalarren... ETC-prentsa

Horrez gain, Kerexera gaztandegiko Felix Ajuriak elikagaien soberakinak erabiliz **autokontsumorako** baliabide energetikoa lortzeko aukeraren gainean ere jardun zuen. ETC-prentsa

Autokontsumoaren eta elikadura burujabetzaren aldeko deia egiten dut nik. ETC-prentsa

Baina protekzionismoak baserritarren interesari ere erantzuten zion, zeren bere produkzio osoa ez baitzegoen soilik **autokontsumora** bideratuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Espainiako estatuari esleitutako ekoizpen-kuota, garai horretan ekoizten zuen esne-kantitatea baino milioi bat tona gutxiagokoa izan zen, eta **autokontsumorako** behar zuena baino bi milioi tona gutxiagokoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina, **autokontsumorako** ekoitzi ordez, merkaturako ekoizten hasi naizenetik dena aldatu da goitik behera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurretiko esperimentuetan hevinen espresioaren murrizpena substantziekiko menpekotasuna garatzeko funtsezko saguen garun atal batetan alkoholaren **autokontsumoa** handitzen duela ikusi dugulako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Produktuak herrialde garatuetan saltzeko erabiltzen dira, baita gutxiago garatuta dauden herrialdeen **autokontsumorako**. ETC-entziklopedia

Harrapatutakoa **autokontsumorako** eta bertako merkaturako eta salmentarako erabili ohi da. ETC-entziklopedia

Autokontsumora bideratutako droga izatea (gehienez ere, administrazioko arau-haustea den jokabidea) eta horrekin trafikatzea (ZKren 368. artikuluaren arabera zigorgarria) bereizteko, kasu gehienetan zeharkako edo zantzuzko frogara jo behar da. ETC-entziklopedia

---

autokontzeptu *iz* norberak bere buruaz duen iritzia. ik **autoestimu**; **autoestima**.

Autokontzeptua eta autoestima oso garrantzitsuak dira pertsona baten garapenean eta, horrek, besteekiko dituen harremanak baldintzatzen ditu. Berria - Euskal Herria

Matematika irakasgaian izango dituzten emaitzen aurrean segurtasun eta **autokontzeptu** handirik ez dute agertzen EAEko ikasleek. Berria - Harian

Euskaldunon **autokontzeptuan**, Manuel Garagorri Larramendi (1690-1766) dugu ziaboga. Askoren artean

autokontziente *(corpusean ez dago; ETCn 59 agerraldi)* *izond* norbere buruaz kontziente dena; kontziente izatea.

Forma -gu formak gara, bai- **autokontzientea** egiten denean, esperimentatzen duenean hustasun eternoaren parte dela, orduan iritsi da jakintzara. ETC-literatura, saiakera

Feminismoa ere bide beretik dator, baina generoduna (eta are gabea) izateko eraikuntza pertsonal **autokontziente** erabatekoaren aukera ematen du. ETC-literatura, saiakera

Hala ere, izpiritu objektiboa, kontzientzia baten forma izanik, ez da **autokontziente**. ETC-literatura, saiakera

Bereizi egiten du giza erresuma, zeinean askatasuna, hautapena eta ekintza **autokontziente** deliberatua funtsezkoak baitira, eta indar inpertsonalen mundua. ETC-literatura, saiakera

Gaur egun, filosofia naturalak ukatu egiten ditu ideia teleologikoak, xedeak eta helburuak formula ditzakeen izaki **autokontzienteren** baten existentzia eskatuko luketelako. ETC-literatura, saiakera

Espiritu etikoa da, Borondate **autokontziente**, errebelatu gisa. ETC-literatura, saiakera

Gure hizkerak errealitatea egituratzen eta sortzen duela onartzen badugu, hitz egiteak ariketa **autokontzientea** eskatzen du. ETC-prentsa

Poemak ez dira **autokontzienteak**. ETC-prentsa

Gaixoei ezin zaie ukatu hilurren daudela jakitea eta bizitzaren amaieran **autokontziente** izatea. ETC-prentsa

Deserosotasuna erretratatzerakoan, behar nuen ez zedila izan bere buruaren oso **autokontzientea**. ETC-prentsa

Ikuspegi marxista **autokontziente** batetik egindako analisi batek jazoera horiek azpian dauden faktore ekonomiko eta klasekoen arabera azaltzera joko luke, nahiz eta konplikatua izan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hain zuzen, pertsonak prozesu politikoan parte-hartzaile **autokontziente** gisa, norberaren kontzientziak hartzen dituen formak aztertu zituen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arima **autokontzientea** da, hau gabe ezin dugu azaldu hainbat gertakari. ETC-entziklopedia

Arrazoi subjektiboa bere helburuekiko **autokontzientea** denean, errealitatea instrumental bilakatzen da, azalduko dugun hurrengo ekintza sozial formara eratorriz. ETC-entziklopedia

---

autokontzientzia *iz* norberaren kontzientzia izatea.

Eta zein idazlek daki horri erantzuten? Baleki, idazle izateari utziko lioke, **autokontzientzia** gehiegizkoagatik. Berria - Kultura

Gure errepresentazioen anizkunkia elkarlotzen duten oinarrizko erregela hauek, beraz, gure kontzientziaren eta **autokontzientziaren** batasunean aldi berean legeak dira, gure adimenak izadiaren lege orokor eta transzendental gisa ezartzen dituenak. Ibon Uribarri

Autokontzientzia horretan datza gizon-emakumeen handitasun paregabea, Pascal-en esanean. Askoren artean

Egia esateko, autoreoi dena sinetsi beharko bagenie, beste edozein momentutan **autokontzientzia** gaixo hori berdin izan liteke. Koldo Izagirre

Horrelako autoafekziorik ez egotean, afekzioen aniztasunetik soilik irits daiteke **autokontzientziara**: berorren baldintza beharrezko baina askiez dira. Piarres Xarriton

---

autokorrelazio *(corpusean ez dago; ETCn 80 agerraldi)* *iz* aldagaien balioek segidako denbora tarteetan duten antzekotasun gradua.

16.11 irudia: **Autokorrelazio** -koefiziente baten kalkulua. r koefizientearen balioa (irudi honetan, datu-matrizearen lehen atzerapeneko **autokorrelazio** koefizientea) lortzen da x eta y definituz, eskuineko zutabean azaltzen den moduan. ETC-zientzia, zuzenbidea

(Ångstrom bat metro baten hamar mila milioirena da.) Matematika-terminoetan, elektroi-dentsitatearen **autokorrelazio** -funtzioaren mapa tridimentsionala litzateke hori. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, **autokorrelazio** -propietatea ere badute: bi hondarren arteko kobariantza ez da zero. ETC-zientzia, zuzenbidea

(4) formula denbora bakarreko **autokorrelazio** -funtzio bat da eta orekan dauden sistementzat balio du soilik. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

autokrata *iz* mugarik gabeko boterea duen erregea, erregina edo kidekoa.

Joan zen hilabetean Estatu Batuetan egin zen G-8ren bileran parte hartu zuen agintari arabiar bakarrenetakoa izan zen Bahraingo **autokrata**. Berria - Mundua

Antzeratsu, aro modernoaren azkenaldian, Mendebaldekoak ez ziren gobernu-moduetan, intelligentsia, berak berariaz sortarazitako **autokrata** mendebaldartzaileen aurka arrakastaz matxinatu zelako iritsi zen agintera. Iñaki Mendiguren

---

autokratiko *izond* autokraziari dagokiona.

Gerrak, orain, esperimentatu zuten herrien militarismoa akabatu egin ohi zuen, eta herriaren borondatea gobernu **autokratiko** batek ere azkenean onartu behar duen indarra da. Iñaki Mendiguren

Oposizioaren aldarrikapenei jarraiki, nazioarteko komunitatea bizkarra ematen hasi zen gobernu **autokratiko** bat zuzentzen ari zela leporatuz. Berria - Harian

Egia esateko, polizi burua jarria zegoen lehengo ukase haien erabaki **autokratiko** eta gupidagabeetara eta ezin zuen onartu gobernatzeko modu hau! Karlos Zabala

---

autokrazia *iz* pertsona bakar batek gidatutako erregimen politikoa.

Oso gustura nengoen Errusiako **autokraziaren** korapiloak askatzen. Monika Etxebarria

Ikuskatzailea-n eta Arima hilak-en salatu zuen guztia aldeztu zuen: **autokrazia**, joputasuna, heriotza-zigorra, Eliza ortodoxoa, otzantasuna, esanekotasuna, morroitasuna... Jose Morales

Erregearen **autokraziak** haren porrota eragin duela iritzi diote adituek. Berria - Mundua

---

autokritika *iz* norbaitek bere buruari edo bere lanari egiten dion kritika.

Zeinahi ekintzak balio luke edo, behinik behin, fede itzel horren izenean, akatsak ere barkatzeko modukoak lirateke, **autokritika** oro irentsiz. Hasier Etxeberria

Ez dut masokismoraino erematen **autokritika** maskulinoa, eta ez diot kasurik egiten (ideia berri bihirik aitzinatu gabe) erresuma anglosaxoietan egiten den kritika sexistari. Aurelia Arkotxa

Esaldi hauek **autokritikarako** jarri ditut, gure burua zirikatzeko. Berria - Kultura

Ezta pentsatu ere! Batetik, egiak min ematen duelako, eta bestetik, ez dagoelako inongo **autokritikarik** egiteko prest. Patxi Iturritegi

Autokritika faltak lerdotu egin zaituzte, eta iseka zakarra, trufa mutiria, ahulari zartako ematea, itsuari lapurtzea, babesgabea zafratzea munduan den jardun distiragarri eta ohorezkoentzat dauzkazue, doilorkeria eta umorea gauza bera bailiran. Jon Alonso

Autokritika egin, euren berbaera marxista zaharkitua erabiltzearren. Xabier Montoia

Ala ahantzia dute gazteek, profeta berriek dioten bezala, **autokritikarik** gabe ez dela nehoiz, nehon deus egin? Piarres Xarriton

Okerrak okerrei estekatu eta **autokritika** oker haiei gaineratzen zitzaien, oker haiexekin lotzen eta nahasten zen. Fernando Rey

Batzarrean **autokritika** egin zenuen harrobiaren aldeko apustua egiteko hiru urte behar izan dituzuela argudiatuz. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autokritika bat (4); **autokritika egin behar** (3); **autokritika egin zuen** (4); **autokritika egitea** (4); **autokritika egiteko** (8); **autokritika ere** (3); **autokritika eskatu** (4); **autokritika falta** (3); **autokritika zorrotza** (3)

autokritikarik egin (4); **autokritikarik ez egitea** (5)

---

autokritiko *izond* bere buruari edo lanari kritika egiten diona.

Baina, guztiarekin ere, berea ez zen Autobiografiaren aurka kontrajartzen zen beste autobiografia bat, **autokritikoa** ere bazenez. Jon Alonso

Askotan esan dut garai horri buruz ikuspegi kritiko eta **autokritikoa** daukadala. Berria - Euskal Herria

Gertaera hori aipatzen baduzu, uste dut **autokritikoki** egin beharko zenukeela. Joseba Sarrionandia

---

autoktono **1** *izond* pertsonez edo gizataldeez mintzatuz, bizi den lurraldean bertan jaio dena.

Aurrena usteko litzateke, herrion arteko ezberdintasunen faktorea -elementu erromatarra denetan berbera baita-, oinarriko herri **autoktonoen** diferentzia litzatekeela. Joxe Azurmendi

Hain zuzen ere, agintari **autoktonoen** erreakzioak ekarriko zuen alde biko eta bakezko trukea, kanpoko erasoa zirudienari aurre egin nahian sarritan. Koro Navarro

2 *izond* gizatalde autoktono bati dagokiona.

Zerbitzariak ekarri garagardoak miretsiz, gure **mintzo** autoktonoen destino petrala ahanzten saiatzen nintzen, izpiritua arratsaldean jasan ikuskizunetan finkatzeko. Itxaro Borda

Kontua izango da jakite historikoaren eremuan burutzear dagoen eraldaketa **autoktono** baten hastapenak eta ondorioak zabaltzea. Xabier Arregi

Nik aldaketa hau nazionalista dela esango nuke, gure nortasuna galdu genuen egoera batetik baikatoz, gure balore nazionalak, **autoktonoak**, dirua, galdu egin ziren, ustelkeriak eta lapurretak hil zituen nazio bateko biztanleek herriaren alde lana egiteko eta herria maitatzeko behar dituzten sentimenduak. Pako Aristi

Gaur egun Erronkarin ez dago euskara **autoktonoa** egiten duen inor. Berria - Euskal Herria

3 *izond* animaliez eta landareez mintzatuz, jatorriz, dagoen lekukoa dena.

Azken 20 urteotan, okerrera egin dute nekazaritza-sistemetako hegaztiek eta arrain kontinental batzuek, kostaldeko estuarioek eta baso **autoktonoen** zatikatzeak eta konektagarritasunak. Berria - Euskal Herria

---

autokudeaketa *iz* norberak bere kabuz egindako kudeaketa. ik **autogestio**; **autoantolakuntza**; **autoeraketa**.

Udalaren jarreraren atzean **autokudeaketak** eragin beldurrak sumatzen dituztela esan zuen Almingolek: "Errealitatea itxuraldatuta azaltzen ari dira, eta kudeaketa mota izan daiteke horren arrazoia, **autokudeaketa** ez baitzaie gustatzen udal arduradunei", adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Diru-laguntzarik jaso gabe ari dira, noski, **autokudeaketan** oinarritutako lan sistema bati esker, beti bezala. Berria - Euskal Herria

---

autokudeatu, autokudea(tu), autokudeatzen *(corpusean ez dago; ETCn **57** agerraldi)* **1** du *ad* nork bere burua kudeatu.

Egun elur oreinen jabe diren samiek bakarrik dute sameby-etako kide izan samiek beren lurraldeetan **autokudeatzen** dituzten zonaldeak eta bertan dohainik arrantzatu eta ehizatzeko eskubidea. ETC-prentsa

Euskal Jai gaztetxeko batzarrak hainbat ekimen iragarri ditu aste honetarako **autokudeatutako** tokien alde . ETC-prentsa

Hori bai," jendeak eraberritzen jakin behar du eta **autokudeatzeko** gai izan". ETC-prentsa

Kulturak **autokudeatu** behar du, Jonek esan bezala, baina **autokudeatzeko** planteamendu orokorra behar dugu, bestela amaren sua itzali egiten da. ETC-prentsa

Autoeratu eta **autokudeatzen** diren taldeei laguntza eskainiko diegu, hain zuzen ere. ETC-prentsa

'Ezagutu etorkizuneko chefak' du izena ikasleek **autokudeatu** beharreko ekimenak . ETC-prentsa

Jendeak bere bizitza egitura ekonomiko baten barnean **autokudeatzeko** gaitasuna galdu du? . ETC-prentsa

Autokudeatutako ginekologia talde txikiak sortu eta Euskal Herrian sarea ehuntzea dute amets. ETC-prentsa

Astra Koordinakundeak **autokudeatutako** proiektua martxan dabil ordutik. ETC-prentsa

Ordura arte, Jaurlaritzak ordaintzen zien soldata **autokudeatutako** jangeletako sukaldariei. ETC-prentsa

Administrazio kapitalistarekin erlazionaturiko esperientzia autogestionarioek **autokudeatzeko** duten boterea galtzen dute, eta korporatibizazioaren bidean jartzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrenbestez, normalizazioa euskaldunek **autokudeatu** beharrekoa da, eta, horrela, euskara-planek ere, arrakastatsuak izango badira, hein handi batean, euskaldunek kudeatuak izatea eskatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Blogak **autokudeatutako** web pertsonalak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 (era burutua izenondo gisa)

Eta lantalde **autokudeatuak** osatzen ditugu. ETC-prentsa

Diote kafe antzokiak mugimendua ekarri duela, eta proiektu **autokudeatua** eta independentea izan dela. ETC-prentsa

Gaztetxeko kideek gogora ekarri dutenez, lan handia egin dute proiektu **autokudeatua** aurrera eramateko, 2013ko azaroaren 16an eraikina okupatu zutenetik. ETC-prentsa

Gazte Festak antolatu ditu, gaztetxe **autokudeatu** baten beharra aldarrikatzeko. ETC-prentsa

Azkenik, jai herrikoi **autokudeatu** eta guaietan orduak pasatzear gauden honetan asko, ezin aproposago dio Ramseyk gainditu behar dugula behingoz bortxaketak eta eraso matxistak soilik jende doilorrak egiten dituelako irudipena, kalezulo ilun eta bakartietan egin ere. ETC-prentsa

Enpresa **autokudeatuak**, berriz, enpleguari ematen dio garrantzia. ETC-prentsa

---

autokudeatze *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* nork bere burua kudeatzea.

Eta azken horren ezaugarria, batez ere talde-lanaren bidez, pertsonak pixkanaka **autokudeatzea** da, horrela? bezero edo merkaturatzetik hasi eta autobus zerbitzatuaren azkeneraino? ETC-entziklopedia

---

autolaguntza *iz* norbaitek bere buruari laguntzeko metodoa.

Horrelakoak ziren, Kempisen Imitazioa buru zela, sasoi bateko **"autolaguntzako** liburuak". Iñaki Segurola

Harremanetan jarri al zara **autolaguntza** eskaintzen duten taldeekin? Berria - Euskal Herria

---

autolesionatu, autolesiona, autolesionatzen du *ad* norberak bere buruari zauriak eragin. ik **autozauritu**.

Interpretarietako bat **autolesionatzen** saiatu da saioa hasi aurretik, mikrofonoko kablea lepo ingurutik bi buelta eman eta kabinako goiko habetik eskegita. Jon Alonso

Auzitegi Nazionalera eramaten ez badute hormaren aurka buruarekin kolpeak emanez **autolesionatu** egingo dela egin du mehatxu. Berria - Euskal Herria

---

autolikidazio *(ETCn **365** agerraldi, horietatik **184** azken sei urteetan) iz* norbaitek bere buruari egindako likidazioa.

Administrazioak **autolikidazioak** egin eta gero akatsen bat aurkitzen duenean bidaltzen dituen likidazioek haserrea piztu dute. Berria - Euskal Herria

Izan ere, bidalitako **autolikidazioen** herena onartu ziren aurten. Berria - Ekonomia

---

autologo *izond* norberaren gorputzetik jasotakoa.

Homologoa edo **autologoa** izan, UCIk aspaldi debekatu zuen odol transfusioaren erabilera kirol errendimendua hobetzeko. Berria - Kirola

Zilbor-hesteko odol-laginen banku pribatu hauen negozioa transplante **autologoan** oinarriturik dago, beraz. Berria - Gaiak

---

automata **1** *iz* izaki bizidun baten irudia duen eta hura bezala higitzen den tresna mekanikoa.

Descartes beldur da **automatek** iruzur egingo dioten. Anjel Lertxundi

Tenore horretan **automatak** gara, altzairuzko panpinak, burdinazko beso eta zangoak, aluminiozko bihotzak taupadaka ari zaizkigula, ferblankazko pentsamenduak ibiltari. Itxaro Borda

Gure aurretik, buruen gainetik eta oinen azpitik ez dakigu zenbat jostailu, **automata** eta panpina mekaniko mugituko diren, sorpresatik sorpresara goazelako protagonista bien istorio tragikoa zenbait ikuspegitatik ezagutuz. Berria - Kultura

Ordu oro Herioz antzaldaturik dagoen **automata** batek kanpai bat jotzen du. Felipe Juaristi

Izan ere, huraxe izan zen hartu nion tankera, arimarik, gogorik gabeko **automata** batena, gorputz hutsa, gihar eta hezur sistema huts bat. Alberto Ladron Arana

Gondoleroa, puntu honetara iritsirik, lehen gertatu bezala, **automataren** hitz egiteko moduaz hasi zen. Jon Alonso

Mutikoa apartatu eta **automataren** moduan joan zen eskaileran behera. Joseba Sarrionandia

Ez zion kasu eman bizpahiru oren iraun zuen alegiazko epaiketa hari eta **automata** batek bezala erantzun zuen erabakia aditzean. Elena Touyarou

2 ***automata finitu*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Egoera finituko makina edo **automata finitua**, konputazio-eredu abstraktu bat da bai konputagailu-programen bai sekuentzia logikoko zirkuituen diseinua ahalbidetzen duena. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **automata bat** (4); **automata batek** (6); **automata baten** (3)

---

automatika **1** *iz* katuari sakatu hutsez tiro egiten duen arma.

Une batez nire **automatikari** begira gelditu nintzen, zozoloturik, arma maparen gainean irristatzen zen bitartean. Alberto Ladron Arana

Eskaintzen zidanari begirada bat eman eta gero, **automatika** zahar bat aukeratu nuen, benetako pagotxa beherapena kontuan hartuz gero, eta harekin batera zazpi kargadore erosi nituen. Iban Zaldua

2 *iz* giza laguntzarik gabe funtzionatzen duen makina.

Baina etxera **automatika** heldu baino lehen, ama errekara joaten zen izarak garbitzera. Ana Urkiza

---

automatiko **1** *izond* tresnez edo prozesuez mintzatuz, giza laguntzarik gabe dabilena.

Hesketa **automatikoko** igogailua erabili nahi ez (erabili ezin esatea zehatzago, nahiz aitortu nahi ez), eta oinez jaitsi ditut lau pisuak. Txillardegi

Hala, behin, autoen abiadura erregulatzeko kaxa **automatikoa** asmatu zuen, kanbio-kaxa deitzen dena, eta General Motors-i saldu zion. J.M. Olaizola "Txiliku"

Apuñatik badakit, hegi lurrekiko gure kontaktu bakunak amerikarrek zeruan barna igorri zirta **automatikoak** direla, eta ditugula. Itxaro Borda

Behategi **automatikoa** da beste aurrerapen zehatz bikaina, gizakiaren laguntzarik gabe, datuak disketean prozesatzen doan tresneria. Pello Zabala

Segurtasun sistema aldatua zeukaten eta, lehengo atezain **automatikoaren** tokian, zeinek bizilagunekin hitz egiten uzten zuen, zenbaki eta letradun panel bat bakarrik ikusten zen orain, mikrofonorik gabea. Bernardo Atxaga

Hala ere, orratz-aseguru **automatikoa** ere badauka. Sonia Gonzalez

Marmarka ireki dut atea, laugarren deia joz gero kontestadore **automatikoa** sartzen baita. Xabier Etxabe

Gero, berrogei urteen bueltan, beren tema txiki horiek eta esaera batzuk esperientzia izenaz bataiatzen dituzte, banatzaile **automatikoarena** egiten hasten dira. Monika Etxebarria

2 *izond* borondateak esku hartu gabe gertatzen dena.

Saio franko kaotikoa bere joanera formalean, sentimenduen peko idazketa **automatikoaren** adibide bat izan liteke. Joxe Azurmendi

Hortaz, kontu haiek ahapeka esateak badaezpadako erreakzio **automatiko** bat behar zuen izan: normal mintzatzeko beldurrak berdindu egiten zituen Umberto eta nire etxekoak. Anjel Lertxundi

Une horretan, gorputz guztiak batera erantzuten du, modu erreflexuan, **automatikoan**, kontrolik gabe, espasmoekin, atsegintasunez. Luis Elberdin

Beste modu batera esateko: ikasle bat aukeratutako ikasketetan sartu ahal izango den edo ez erabaki **automatikoa** da, ordenagailu batek egiten baitu hautua, ikasle guztien kalifikazioak hurrenkeran jarriz. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gure ekintzak informazio ohi deritzen bulkada edo kinadekiko erantzunak izaten direla, hots, erantzun **automatikoak**. Joxe Austin Arrieta

Gero, berriz, denboraz juxtu ibiliko ginela-eta bizkortzeko esan dit lagunak, eta modu **automatikoan** hasi naiz. Xabier Mendiguren Elizegi

3 ***arma automatiko***

Arma automatikoetakoren batek doiegi tirokatzen zidala iruditzen zitzaidanean, haren gainera jotzen nuen, albait lasterren, lur arrasean, eta metrailadore turrusta bat botatzen nion. Josu Zabaleta

Bi buruzagien jarraitzaileak elkarri tiroka ibili ziren **arma automatikoekin**. Berria - Mundua

Akusazioa: talde islamiko batekoa izatea eta etxean **arma automatikoak** eta granada jaurtigailuak edukitzea. Berria - Mundua

Soldadu batzuek irekita zituzten kiloko kontserbalata batzuk, eta mahukak goratuak, eta labanekin haragipuskak ziztatu eta jan egiten zituzten, beste batzuek, **arma automatikoak** belaunen gainean. Fernando Rey

Hauez gain artilleriako beste 35 lehergaik jo zuten hormetan, Abrams gerra-gurdiek beste hamar bonba sartu zituzten, eta hauen atzetik soldaduek 30.000 inguru tiro jaurti zituzten **arma automatikoekin**. Pako Aristi

Erfürt-eko aldean Aliatuen kanoiak ikusten ahal ditugu eta hurbilago **arma automatikoak**. Michel Oronoz

4 ***arrazoiketa automatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

IBMk Watson lengoaia naturalen prozesamendua, informazio bilketa, ezagutzaren errepresentazioa, **arrazoiketa automatikoa** eta ikasketa automatikoa erantzunen bilaketaren eremu irekian aplikatzen dituen teknologia aurreratuen sistema bezala deskribatzen du. ETC-entziklopedia

5 *ate automatiko*

Pixkanaka, multzokatuz doaz eta **ate automatikoaren** irekialdi batean hogei bat atera dira elkarren ondoan, elkarren segidan. Lourdes Oñederra

Gauean, polizia sartzear zela, **ate automatikoa** trankatu zuten presoek, modulura sarrera zailduz. Jokin Urain

Kontaktua piztu, eta garajearen **ate automatikoa** zabaldu dun. Iban Zaldua

Tapaxek errepide bazterrean kamioia nolabait utzi eta, arin-arin pasteleriara sartzera zihoala, **ate automatikoa** ikusi ez eta, kasik muturrekoa hartu zuen. Pablo Sastre

"Baliteke garajeko **ate automatikoa** konpondu behar duen teknikoa izatea. Patxi Iturritegi

6 *atezain automatiko*

Ni etxetik bidali eta lehenbiziko bi hilabeteetan, telefonoz agertzen zidan adeitasuna lurrindurik gelditzen zen bion etxea izandakoaren **atezain automatikoaz** baliatzen nintzelarik. Aingeru Epaltza

Atezain automatikoek ez dute beti ondo funtzionatzen, pentsatu nuen, eta azken ahalegin bat egingo nuen. Iban Zaldua

Dudatan gelditu zen atari ondoan, **atezain automatikoari** begira zer egin ez zekiela, txirrina sakatu edo ez. Migel Angel Mintegi

Jabeek gelaka alokatu diete pisua hainbat etorkin magrebdarrei, eta askotan gertatzen da, esaterako, goizeko ordu txikietan, giltzak ahaztuta, etorkinen batek bizilagunak esnatzea **atezain automatikoa** jo eta jo. Iban Zaldua

Biltegi nautikotik biodendetarik garajeetarik **atezain automatikodun** ezkaratzetarik jalgi zarete denak ateetara leihoetara espaloira, eta honantzako norabidean zatoztenak baztertzen baldin bazarete ez da bide egiteagatik, ikuspuntua hartzeagatik egiten duzue albora. Koldo Izagirre

Egia esatera, ez zitzaidan sobera kostatu haren telefono zenbakia zein zen jakitea: atariko **atezain automatikoan** bigarren eskuinari zegokion izenari erreparatu, eta telefono listinera egokitu besterik ez: Piarres Bordagarai, 59 45 86 21. Patxi Zubizarreta

Atetan utzi zuen odol arrastoagatik, Ofelia eskaileretan behera abiatu zen, eta antza denez **atezain automatikoko** tinbreak jo ostean, zabalik aurkitu zuen aurreneko lokalean babestu zen, bere etxetik metro gutxira dagoen italiar jatetxean. Iñigo Aranbarri

Segurtasun sistema aldatua zeukaten eta, lehengo **atezain automatikoaren** tokian, zeinek bizilagunekin hitz egiten uzten zuen, zenbaki eta letradun panel bat bakarrik ikusten zen orain, mikrofonorik gabea. Bernardo Atxaga

7 *erantzungailu automatiko*

Hatz-kolpe batez isilarazi nuen Ximurraren **erantzungailu automatikoko** emakume ahots konputerizatua. Aingeru Epaltza

Egilearen **erantzungailu automatikoa** ari zaizu hizketan. Joxerra Garzia

Borreroak, sei aldiz, etxeko **erantzungailu automatikoan** urkatuen mezuak (ez da zehazten zer-nolakoak) jaso izana salatu du, dagokion Epaitegian bezala bere nagusien aurrean ere. Karlos Linazasoro

Azkenerako, **erantzungailu automatikoa** jarri nuen, ez nintzan ustekabean har, eta, hala ere, egunero deitzen jarraitu zuen luzaroan, eta mezu patetikoak uzten zizkidan, besterik ezean hitz bat behintzat idazteko eskatuz, halako batean deitzeari utzi zion arte. Ramon Saizarbitoria

Erantzungailu automatikoan batere mezurik ba ote zuen ziurtatu zuen, sofa gainean maleta utzi eta sukaldera garagardo lata hotz baten bila sartu ahala. Harkaitz Cano

Erantzungailu automatikoan bi dei zeuzkan: norbaitek dei egin zion baina, oharturik ez zegoela etxean, mezurik utzi gabe eskegi zuen. Joxemari Iturralde

Beste edozein tokitan ez bezala, hiri honetan ezinezkoa da **erantzungailu automatikorik** gabe etsitzea. Harkaitz Cano

8 *erloju automatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

" **Erloju automatikoek** ez dute pilarik, mugimenduarekin ibiltzen direnak dira, eta kargatu egiten dira", azaldu du Munduatek. ETC-prentsa

Elexabeitin **erloju automatikoa** ipini diate, eta ez zakitek zelan desaktibatu. ETC-literatura, saiakera

9 *erregulazio automatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Erregulazio automatikoa prozesuaren kontrola aztertzen duen ingeniaritzako adar bat da; adibidez, berokuntza baten tenperatura, hegazkin baten norabidea edo auto baten abiadura-mantentzea ezarritako balioan. ETC-entziklopedia

Bereziki, sistemaren **erregulazio automatikoaren** funtzionamendua egiaztatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

UPV/EHUko hainbat gradutan, 3. ikasturteko **Erregulazio Automatikoa** ikasgaian aztertzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *etengailu automatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **79** agerraldi)*

Etengailu magnetotermikoa korronte elektrikoak balio batzuk gainditzen dituenean zirkuitu elektriko zirkuitoa eteten duen **etengailu automatiko** bat da. ETC-entziklopedia

Siemens motor elektrikoa du, 5,5 CV 950 rpm ezaugarriak dituena; galga elektriko magnetikoa eta **etengailu automatikoak**, hartunedunak. ETC-entziklopedia

Espazio ontzia galgatzeko diseinatutako suziria ezin zuten tenperatu hain baxutan lan egin, itzali egin behar zituen **etengailu automatikoa** ezta ez zuen bere lana bete, hau da, suziriak bere lana ondo egin arren, ez zitekeen ondo aterako. ETC-entziklopedia

Etengailu automatiko bat izan behar zen. ETC-literatura, saiakera

Derioko lantegiak tentsio baxuko etengailu elektrikoak merkaturatzeari ekin zion duela 40 urte, eta 1978an lantegi propioa ireki zuen **etengailu automatiko** eta bereizgarriak Medex izenpean ekoizteko. ETC-prentsa

Ekipo gehienek babes-sistemak dituzte (fusibleak, **etengailu automatikoak**, diferentzialak eta abar) elikatze-tentsioa muga onargarrietatik kanpo ateratzean eragin ditzakeen kalteak eragozteko, batez ere bereziki garestiak diren ekipoetan edo prozesu mota guztien funtzionamendu zuzen eta segururako nahitaezkoak diren ekipoetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 *fusil automatiko*

"Eraso honetan 570 gerrillari islamistek parte hartu dute», dio Basaievek bideoan: "700 **fusil automatiko**, 800 pistola eta milioi bat kartutxo hartu ditugu». Berria - Mundua

12 *idazlanen kalifikatze automatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Idazlanen kalifikatze automatikoa (IKA, ingelesez "automated essay scoring", AES) hezkuntza-ingurunean egindako idazlanei kalifikazioak esleitzeko programa informatiko espezializatuen erabilera da. ETC-entziklopedia

13 *ikasketa automatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **155** agerraldi)*

Tresna guztietan **ikasketa automatikoa** integratu ahal izatea ahalbidetzen duen erreferentzia da. ETC-prentsa

Diotenez, etorkizuneko helburuen artean, jasotako datuetan oinarrituz, **ikasketa automatikoaren** bidez hobetu nahi dute prozesua, kazetariek egin beharreko lana errazteko. ETC-prentsa

Neurketa egiteko, Twitterren Euskal Herriko erabiltzaileen errolda bat egin dute era automatikoan, **ikasketa automatikoko** algoritmoen bitartez. ETC-prentsa

Gaur egun, hitzak errepresentatzeko, makinek beraien esanahia ongi "ulertzeko", **ikasketa automatikoa** erabili ohi da. ETC-prentsa

Adibidez, luzeegi joko luke grafikoak egiteko metodo guztiak lantzeak edo **ikasketa automatikoaren** bidez sailkatzaileak sortu ahal izateko metodo guztiak lantzeak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tresnak **ikasketa automatikoko** metodoak eta Euskal-TimeBank izeneko corpusa baliatzen ditu gertaerak etiketatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondoren, eskuz etiketatutako corpus zatia oinarri hartuta, gainontzekoa automatikoki etiketatu da **ikasketa automatikoa** eta metodo estatistikoak baliatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretarako, datu-meatzaritza prozesu oso bat garatu eta ondorioak ateratzeko **ikasketa automatikoko** teknikak erabili ditugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bere ikerketak Adimen Artifiziala, Machine Learning (**Ikasketa Automatikoa**) eta Deep Learning (Ikaskuntza sakon Ikaskuntza Sakona) arloen ingurukoak dira. ETC-entziklopedia

Informazioaren erauzte-prozesu horretan adimen artifizialeko, estatistikako eta **ikasketa automatikoko** metodoak erabiltzen dira. ETC-entziklopedia

14 *itzulpen automatiko*

2006rako euskarak kode irekiko **itzulpen automatikoko** sistema izango du; testuak eta web orriak berehala itzuli ahal izango dira. Berria - Harian

Cervantes Institutuak euskarazko **itzulpen automatikoak** ere eskainiko ditu datorren urtean. Berria - Euskal Herria

15 *itzulpen automatiko neuronal* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Handik lau urtera, eta ordura arte garatutako itzulpen baliabideak erabiliz, euskarazko **itzulpen automatiko neuronalak** arrakasta nabarmena lortu zuen. ETC-entziklopedia

2017ko irailetik aurrera, Yandex itzultzailea **itzulpen automatiko neuronalera** trantsizioa egiten hasi zen itzulpen hobeak lortzeko asmoz. ETC-entziklopedia

16 *itzulpengintza automatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **108** agerraldi)*

Itzulpengintza automatikoa hizkuntza teknologiaren garapenean nabarmen lagundu duen diziplina da. ETC-entziklopedia

Itzulpengintza lanak erraztea eta bizkortzea da xedea, eta, asmo horrekin, **itzulpengintza automatikoa** egiteko sistema bat ere ari dira aztertzen. ETC-prentsa

Itzulpengintza automatikoaren nondik norakoak eta testuak aztertzeko teknologiak ematen dituen bitartekoak landuko dira, berriz, hizkuntza eta teknologia berriak ataleko ikastaroetan. ETC-prentsa

Jendeak lehen ez zuen **itzulpengintza automatikoaren** inguruan ezer planteatzen. ETC-prentsa

Esan diogu, bere alorra ulertzeko zaila den arren, **itzulpengintza automatikoa** badela gai interesgarria, hizkuntza gutxituentzat adibidez. ETC-prentsa

Norabide horretan lanean ari da IXA, pentsatuz sistema estatistikoak ekarpen inportanteak egin diezazkiokeela **itzulpengintza automatikoari**. ETC-prentsa

Itzulpengintza automatikoa (IA) mundu globalizatuan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den garai hauetan, euskararako publikoki erabilgarria den lehenengo itzulpen-sistema aurkezten dugu: Matxin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ez gara aplikazio posible guztiak aztertzen hasiko, baina agerikoa da, besteak beste, hiztegigintzan, hizkuntza-politikan, **itzulpengintza automatikoko** tresnen diseinuan eta beste hainbat eremutan corpusek hartu duten garrantzia. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dena den, agian gauzak aldatzeko bidean daude etorkizun ez hain urrunean, zeren, azken urteotako aurrerapen digital-informatikoak direla-eta, aurrerapauso handiak ematen ari baitira **itzulpengintza automatikoaren** arloan. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *itzultzaile automatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **275** agerraldi)*

Paradigma neuronalaren ekarriarekin 2017z geroztik izugarrizko hobekuntza nabaritu zen hizkuntza nagusienen arteko **itzultzaile automatikoetan**. ETC-entziklopedia

Eusko Jaurlaritzak euskarazko **itzultzaile automatikoa** garatzeko prozesua abian jarri zuela eta, horren garapenean jardungo zuen enpresa hautatzeko lehiaketa publikoan parte hartuko zuten enpresetako adituei iritzia eskatzen zitzaien. ETC-literatura, saiakera

Kasik esan nezake **itzultzaile automatiko** bat daukadala aktibaturik buru-barruan, eta zertarako? eta gauza sakon eta substantiboak aditu ahala hitz arruntetara itzultzeko. ETC-literatura, saiakera

Bere biografiari erreparatuta, ez dugu zalantza handirik ingelesa izan behar duela hizkuntza ohiko eta egunerokoa, baina hori ez da problema: literatura berez da artifizio bat, eta lizentzi da, beraz, **itzultzaile automatikoa** pizturik edukitzea. ETC-literatura, saiakera

Elebidun izateak, nire belaunaldia erdaretan eskolatua izanak, gure irakurketen parte dezentea beste hizkuntzetan egiteak ia atsedenik gabeko **itzultzaile automatiko** bihurtzen gaitu; hizkuntza batetik bestera gabiltza etengabe... ETC-literatura, saiakera

Gaztelania-Euskara lehen **itzultzaile automatikoa** aurkeztu dute. ETC-prentsa

Ez, OpenTrad gaztelania-euskara **itzultzaile automatiko** aurkeztu berriaren demo-ak ez du laguntzen Zapateroren hitzak interpretatzen. ETC-prentsa

Hasieran, **itzultzaile automatikoak** gaztelaniatik euskarara itzultzeko balioko du, baina etorkizunean euskaratik gaztelaniara itzultzeko sistema ere garatzeko asmoa azaldu dute proiektuaren bultzatzaileek. ETC-prentsa

Euskarazko **itzultzaile automatikoa** garatzeko eta eskaintzeko bidea hasi du Eusko Jaurlaritzak. ETC-prentsa

Elhuyarrekin eta EHUko IXA taldearekin elkarlanean hobetu dute gaztelania-euskara **itzultzaile automatikoa**. ETC-prentsa

Trukean, **itzultzaile automatikoak** testua oso-osorik itzultzen du. ETC-prentsa

Horrez gain, bisitariek fardelak gordetzeko kontsignako arautegia **itzultzaile automatikoa** baliatuz itzuli izana irmoki gaitzetsi du. ETC-prentsa

Falta dituzten hizkuntza tresnak sortzea da helburua: hiztegiak, corpusak, **itzultzaile automatikoak**, ahots ezagutzaileak... ETC-prentsa

Espainiako Energia Ministerioa euskaraz argitaratzen ari da albisteetako tituluak eta beste atal batzuk, **itzultzaile automatiko** bidez, eta okerrez beteta. ETC-prentsa

Vicomtechek EiTBrentzat interesgarri diren hainbat proiektu garatu ditu, esate baterako, Batua euskara-gaztelania **itzultzaile automatikoa**, edo Idazle euskarazko eta gaztelaniazko azpidatziak automatikoki sortzeko aplikazioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

18 *kartografia automatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Baina, oro har, kartografia klasikoa hilzorian dago, teknologia berriek ekarritako **kartografia automatikoaren** mesedetan. ETC-prentsa

Halere, ordenagailuz lagunduriko kartografia **kartografia automatikoa** baino termino egokiagoa da gaur egun alor horrek bizi duen egoera deskribatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

19 *kutxa automatiko* *(**20** agerraldi, liburu **1** eta **14** artikulutan)* banku edo aurrezki kutxa batekin konektaturiko makina, bezeroari, txartel kodedun baten bidez, hainbat banku eragiketa egitea ahalbidetzen diona.

Kutxa automatikoen sarea. Berria - Euskal Herria

Bere emazteak **kutxa automatiko** batetik dirua atera eta lapurtzen saiatu ziren. Berria - Kirola

Txartela **kutxa automatikoaren** barruan trabatuta gelditu. Berria - Ekonomia

Kontzerturako sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko BBKren **kutxa automatikoetan**. Berria - Kultura

Lau **kutxa automatiko** eta telefono kabina bati su eman diete Arrasaten eta Gasteizen. Berria - Euskal Herria

Kutxa automatiko bat erre edo etxe baten aurka molotov koktelak jaurtitzeagatik. Berria - Euskal Herria

· Diru-**kutxa automatikoa,** segurtasunezko kutxa. Jon Alonso

20 *kutxazain automatiko* *(**14** agerraldi, **6** liburu eta **6** artikulutan)* kutxa automatikoa. ik **kutxa 13**.

Kaleetan dauden **kutxazain automatiko** horietan egiten bada eragiketa oraindik apalagoa da kostua: 27 ehuneko bakarrik. Pello Salaburu

Kutxazain automatikora joan nintzen, propio ere ez, ohituraz bezala, edo denborapasan; klabea markatu, eta saldoa eskatu nuen. Karlos Linazasoro

Kutxazain automatikoetan erositako sarreren dirua kutxazainen bidez itzuliko dute. Berria - Kultura

Astelehena zen; ziur nago, bezperan etxepeko **kutxazain automatikoa** hirugarren aldiz erre zutelako, eta igande gauetan gertatu ohi zirelako horrelakoak. Ramon Saizarbitoria

21 *labana automatiko*

Atzamar itsuek, metxeroarekin batera, bestelakoa haztatu dute hor barruan: Susok oparitutako altzairuzko **labana automatikoa**. Paddy Rekalde

22 *markagailu automatiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Markagailu automatikoa edo deigailu automatikoa telefono zenbakiak automatikoki markatzen dituen gailu elektronikoari edo softwareari deritzo. ETC-entziklopedia

23 *pilotu automatiko*

Bazen sepia koloreko argazki eskerga bat, Templeren aitonak North Dakotako Grandin herrian 1880an zuen etxaldearena; beste aitonak, berriz, hegazkinentzako **pilotu automatikoa** asmatu omen zuen. Xabier Olarra

Gorputzaren **pilotu automatikoa** garuntxoa da, garun-enborra atzetik inguratzen duen hanpadura bat. Irene Aldasoro

24 *salmenta automatiko*

Azkoyen taldeak **salmenta automatikoa** egiten duten produktuen makinak egiten ditu, eta kafea ekoizten du, modu industrialean, eta saldu egiten du. Berria - Euskal Herria

25 *tornu automatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Tornu automatikoa ere hantxe ikusi nuen lehenengo aldiz. ETC-prentsa

Segurtasuneko langile ugari dago pilotalekuko harrera aratzean, eta horietako batzuk **tornu automatikoak** igaro berri dituzten ikusleak mimoz miatzeaz arduratzen

dira. ETC-prentsa

Tornu automatikoa ez dabil ongi egunean lau aldaketa baino gehiago egin behar direnean. ETC-zientzia, zuzenbidea

26 *transmisio automatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Transmisio automatikoa edo kaxa automatikoa, automobil edo bestelako ibilgailuetarako abiadura-kaxa bat da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **automatiko batean** (4); **automatiko batez** (4); **kutxa automatiko bat** (3); **pistola automatiko** (4)
>
> **ate automatikoa** (4); **automatikoa da** (6); **automatikoa izan da** (3); **automatikoa izan zen** (3); **automatikoa izaten** (3); **automatikoa zen** (3); **doikuntza automatikoa** (5); **irudi automatikoa** (3); **itzulpen automatikoa** (4); **pilotu automatikoa** (3); **pistola automatikoa** (3)
>
> **arma automatikoak** (3); **zerbitzari automatikoak** (3)
>
> **erantzungailu automatikoan** (3); **modu automatikoan** (5)
>
> **idazkera automatikoaren** (3)
>
> **arma automatikoekin** (4)
>
> **kutxazain automatikoen** (3)
>
> **itzulpen automatikoko sistema** (3)
>
> **kutxazain automatikora** (3)
>
> **itzulpen automatikorako sistema** (3)

---

automatikoki *adlag* era automatikoan.

Pertzepzioaren jarraitasuna eta egonkortasuna ezin esplika daitezke ikusmenezko pretzepzioak, ia **automatikoki**, ikusmenezko errealitateari buruzko jakintza bat lanean jartzen duela onartzen ez bada. Josu Zabaleta

Eta beraz Eliza ofizialak eginak ziren bilkuretan ez zen holakorik aipatzen ahal eta aipatzen zelarik ere politika egiten genuen **automatikoki**. Menane Oxandabaratz

Kontua da sadismo berbak, harrezkero, Saderengana eramaten gaituela **automatikoki**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gero, pentsatzeko astirik gabe, **automatikoki**, itzuli egin nuen euskarara kantuan hasten nintzenarekin batera. Andoni Egaña

Denbora sobera gastatu zuen bilatzen, gainerako jendeak **automatikoki** heltzen ziren gunera iristeko. Itxaro Borda

Berdin irekiko lituzkeela begiak goiztiri tenore horretan, **automatikoki**, etxeko ohe gozoan. Xabier Montoia

Automatikoki egiten nuen lan hori eta gorrotatu ere egiten nituen, bankari batek bezero arruntak legez, munduko gauzarik normalena balira bezala gertatzen ziren erditzeak. Hasier Etxeberria

Edo agian alderantziz gertatzen da, leihoko argitan irakurtzen duena idazten du komedianteak, **automatikoki**, norbaiten diktatuaren pean balego bezala. Harkaitz Cano

Mutilak **automatikoki** eman zion, oharkabean bezala. Fernando Morillo

Izerdia kopetan, ia **automatikoki** egiten zituen gosariak, amaigabeko erroskan balebil bezala. Iñaki Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **automatikoki doitzen** (6); **automatikoki egiten** (8); **du automatikoki** (3); **ia automatikoki** (6); **larrialdi zentroekin automatikoki** (3); **zentroekin automatikoki konektatuta** (3)

---

automatikotasun *iz* modu automatikoan egiten denaren nolakotasuna.

Savanten dohainen bakartasun, eragingaiztasun eta **automatikotasunik** gabeak izan ohi dira. Xabier Olarra

Irudiaren arte tradizionalak, argazki bidezko irudiaren kontra, bere **automatikotasunagatik** gutxiesten baita. Josu Zabaleta

---

automatismo **1** *iz* mekanismo edo sistema automatikoa.

1969an argitaratutako elkarrizketa batean eman zuen, itxura denez, Marcelin Pleynet-ek joera horren lehendabiziko adierazpen global artikulatua, argazki-irudiaren **automatismoaren** kontrako eraso bortitz bat eginez. Josu Zabaleta

Izenburuko bidaiari misteriotsuarekin denok egin beharreko ibilbidean hainbat lurralde zirraragarri zeharkatuko ditugu, hala nola haize gaineko pasabidea, bidaiariak maleta argidun bat eskuan duenekoa, edota bihotzik gabeko hiria, **automatismoetan** erabiltzen diren kartoi zulatuen proiekzioekin egina. Berria - Kultura

2 *iz* errepikatzearen edo ohitura hartzearen ondorioz automatiko bihurtu den ekintza.

Automatismo hutsa zen; Pasaiako portuan, jakin gabe, amerikarrentzat espioitza lana egin zuen denboran ikasitako joera bat beharbada. Ramon Saizarbitoria

Horrek errepikapenaren **automatismoa** eman ziezaiokeen ekintzari, baina nik esango nuke, hori baino gehiago, ezagutzak ematen duen intimitatea zeukala. Xabier Mendiguren Elizegi

Kanpai-hots batzuk entzunik, ordulariari begiratu nion, eta **automatismo** inozo hari zor diot bet-betan nire borondateaz jabetu zen asmo latz baten hozkirria. Anjel Lertxundi

Oharkabean, eskolan hainbeste urte egin ondoren sortutako **automatismoz**, ardatz horizontal bat marrazten hasi zen Ruche jaunaren eskua. Jon Muñoz

---

automatizatu *izond* makina edo tresnen bidez automatiko bihurtutakoa.

Ez duzu ahaztu behar beste bide **automatizatu** batzuk ere badituzula. Askoren artean

Altzairuzko bobinak prozesatuko dituen prentsa bidezko ebaketa linea **automatizatu** bat egiteko kontratua lortu du Fagor Arrasatek Txinan. Berria - Ekonomia

Bitartean erlojugintzan iraultza bat izan zen: Ameriketan makina **automatizatuekin** fabrikatzen hasi ziren erlojuak. Pablo Sastre

Halaber, galdeketaren prozesu guztia **automatizatua** izatea salatu zuen atzo oposizioak. Berria - Mundua

---

automatizazio **1** *iz* automatizatzea.

Bai, eguneroko bizitzatik har daitezkeen adibideekin txit erraz defenda daiteke: telefonisten ordezko lana egiten duten telefono linea digitalak, automatizaturiko ordaintokiak autobideetan, langileak ordezkatzen dituzten makinak, **automatizazioa**, errobotak, eta abar. Iñaki Heras

Neurketen datuak hamar minutuz behin lortzen dira, eta datu horiek baliatuz **automatizazio** bat diseinatzen ari gara gu, ibaietako oxigeno ekoizpena eta kontsumoa neurtu ahal izateko. Berria - Gaiak

Eta hala ere esperantza zegoen, **automatizazioa** eta zibernetika aurreratzen ari ziren, laster makinek eginen zuten dena. Joseba Sarrionandia

Eta ez dezagun **automatizazioa** ahantz: dagoeneko, ez dugu hainbeste jenderik behar. Joxe Austin Arrieta

2 *automatizazio industrial* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Bi sektore nagusitan lan egiten du: **automatizazio industrialerako** sistemetan eta energia berriztagarrietan (eolikoa, eguzki energia termikoa, fotovoltaikoa, itsas olatuen bidezkoa...). ETC-prentsa

Bere negozio nagusiak energia elektrikoa sortzeko eta **automatizazio industrialeko** teknologien ingurukoak dira. ETC-entziklopedia

Informatika lizentziatura ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean eta gero 1990-91 ikasturtean "Robotika eta **Automatizazio Industriala**" masterra egin zuen UPV/EHUn. ETC-

entziklopedia

Lanaren kudeaketa zientifikoa edo taylorismoa, mekanizazio eta **automatizazio industriala** oraindik agertzeke zegoenean garatu zen. ETC-entziklopedia

---

automedikazio *iz* sendagaiak, norberaren kabuz edo beste norbaitek aholkatuta, sendagileak agindu gabe hartzea.

Goizeko prentsan irakurri berri du gora egin duela **automedikazioak** azken aldian, era guztietako botika miragarriak eskaintzen direla gaur egun interneten bidez. Imanol Zurutuza

---

automobil 1 *iz* ibilgailu motorduna, lau gurpilekoa eta lau bat bidaiari garraia ditzakeena. ik**auto**; **beribil**.

Automobilen argi txikiak, erakusleihoen distira, semaforoak, farolak... sartu zaizkizu begietatik. Rafa Egiguren

Korrikaldi batean joan zen **automobileraino**. Migel Angel Mintegi

Lurrun-makina batena baino eraginkortasun hobea da hori, **automobil** baten motorraren berdina, eta diesel motor batena baino txarragoa. Irene Aldasoro

Robotak azeleratzeko eta balaztatzeko gaitasun handia duela diote, bat formulako **automobil** batek baino bost aldiz handiagoa. Berria - Gaiak

Oraindik badira natura eta bakardadea maite duten banaka batzuk, eta bertan ematen dute uda partea, baina **automobila** dute denek. Eskarne Mujika

Espazioa eta paisaia ulertzeko modua izugarri aldatu da **automobila** agertu zenetik -azaldu zigun ibilaldi batean lagundu genion gaztetxoei. Bernardo Atxaga

Segidan, **automobil** batzuk iritsi eta berrogei bat polizia jaitsi ziren, eskuan armak zituztela. Joan Mari Irigoien

Mamu istorio baterako lekune aproposa zirudien, balaztendako zapatak eta **automobilendako** pieza osagarriak galdatzen dituzten labeetan gorituriko izaki beldurgarrien jabego. Aingeru Epaltza

Kale bete-betean mila eta milaka bizikleta dabiltza, motor asko eta **automobil** gutxi. Gotzon Garate

Iragan astean, Kabul hiri nausian zartagailuz betea zen **automobil** bat zapartatu da. Herria

2 *automobil elektriko* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)* ik **auto elektriko**.

Hidrogenoa erregai modura duten **automobil elektrikoen** inguruan ikerketa ugari egiten ari dira, baina oztopo gaindiezin bat izan dute beti: hidrogenoa lortzeko platinoa behar izatea. ETC-prentsa

Automobil elektrikoa egiteko proiektuak, gauzatu ez denak, 14,7 milioi euro xahutu ditu laguntza publikoetan. ETC-prentsa

Zalantza barik, energia berriztagarrien aldeko apustua nahitaezkoa dela jakinda, **automobil elektriko** zein hibridoak dira albiste. ETC-prentsa

Lanerako **automobil elektrikoen** Espainiako enpresa liderraren, Comarth-en % 38 erosi du eta sektore horretan lan egiteko izango da lantegi berria, nabe industrial bat. ETC-prentsa

2009an, mundu osoan 6.000 **automobil elektriko** baino ez zeuden, eta 2015ean, lehen aldiz, milioi bateko kopuru sinbolikoa gainditu zuen merkatu elektrikoak, 1,2 milioi ibilgailuetara helduz. ETC-prentsa

Automobil elektrikoaren aldeko apustua egin beharrean, diligentziak hobetzen saiatzea bezala litzateke hori. ETC-prentsa

Ekoizpenari dagokionez, gaur egun Txinan egiten dira munduko **automobil elektrikoen** baterien %70. ETC-prentsa

Automobilaren industriaren inguruan, gainera, norabidea aldatzeko funtsezko planteamendurik ez dago, **automobil elektrikoak** pagotxa berria dirudiela. ETC-prentsa

Automobil elektrikoen sektorea asko hedatuko da. ETC-prentsa

3 *automobil erakusketa* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Automobil Erakusketa: maiatzaren 6tik 10era bitartean. ETC-prentsa

Renault etxeak Ginebrako **automobil-erakusketan** aurkeztu zuen Captur berria. ETC-prentsa

Urte bereko Turingo **Automobil Erakusketan** aurkeztu zuen Lamborghini 350 GTV, markaren lehen kirol autoa. ETC-prentsa

2004. urte erdirantz Beijing-eko **automobil-erakusketan**, Focus-en bigarren belaunaldiko prototipoaren aurkezpena egin zen, baina Parisko 2004ko **automobil-erakusketan** kaleratu zen. ETC-entziklopedia

4 *automobil parke* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Bitartean, hemen inork ez du azaldu nahi zer gertatuko den Txinak eta Indiak **automobil parke** propioak mendebaldekoen moduan garatzen dituztenean, eta hori bihar-etzirako kontua da. ETC-prentsa

Bestalde, Pasaiako zentral termikoak urtebetean Gipuzkoako **automobil-parke** osoak baino CO2 gehiago isurtzen du. ETC-prentsa

Eusko Jaurlaritzak **automobil parkea** berritzeko zituen 2010 Euskadi Planeko dirulaguntzak bukatu egin direla, aurreikusi baino askoz lehenago. ETC-prentsa

Espainiako **automobil parkea** oso zahartua dago; gaur egun, 11 urte eta erditik gorakoa da gure hiri eta errepideetan dabiltzan autoen batez bestekoa. ETC-prentsa

Automobil parkearen hazkundea are ikusgarriagoa izan zen, erregai merkearen eskutik: hamarkada eskasean 3.000 auto izatetik milioi erdiraino iritsi zen konderria. ETC-prentsa

5 *automobilen diseinu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

1924an, **automobilen diseinuak** kolapso garrantzitsu bat jasan zuen AEB Ameriketako Estatu Batuetan merkatuan. ETC-entziklopedia

6 *erratz-automobil* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* ik **erratz-auto**.

Erratz autoa edo **erratz automobila** errepideko txirrindularitza lasterketa bati jarraitzen dion ibilgailua da. Baimendutako epean helmugara iristeko gai ez diren txirrindulariak atzean uzten dituen ibilgailua da. ETC-entziklopedia

7 *turismo automobil* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Ohiko **turismo automobil** baten antzerakoa da, baina trakzioa gurpil guztietara sartzeko aukera ematen digu. ETC-prentsa

Ford Focus C segmentuko **turismo automobil** autoa da. ETC-entziklopedia

Tomás Saldaña bizkaitar gidari ohia da, **turismo-automobilen** lehiaketan aritzen zena. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **automobil bat** (10); **automobil batean** (4); **automobil baten** (10); **automobil fabrika** (5); **automobil guztiak** (3); **bi automobil** (4)
> **automobila ikusi** (3)
> **automobilean sartu** (5)
> **automobiletik atera** (4)

---

automobilgintza *iz* autogintza.

Babes ignifugodun poliamidak nagusiki industria elektronikoan, elektrikoan eta **automobilgintzan** erabiltzen dira. Berria - Gaiak

Automobilgintzako osagaiak dira atzerrian arrakastarik handiena dutenak . Berria - Ekonomia

---

automobilismo *iz* autoen arteko lasterketetan parte hartzean datzan kirola.

Automobilismoan oso zaila da etorkizunaz hitz egitea. Berria - Kirola

Zuzenbidea ikasten hasi zen, aitarengatik, baina bigarren mailan zegoela **automobilismoa** bakarrik izan zuen ardura. Berria - Kirola

automobilzale *iz* autoak maite dituena; auto-gidaria. ik **autozale**; **autozain**.

Egun hartan, aitak bezero leial bat zuen barraren bestaldean, Luis Arruza, ezizenez "Ferrari", mutilzaharra eta **automobilzale** itsua, automobila noiznahi aldatzen zuena, zaharra salduz eta berria erosiz. Joan Mari Irigoien

Ohi ez bezalako trafikoz bor-bor zegoen kalea, **automobilzaleen** tutu eta tranbia-gidari presatien dangada hots batean. Irene Aldasoro

---

automotor *iz* ibilgailua, autoa.

Ia ahaztu egin zait -idatzi dio Jose Luis Granderi 1941eko azaroan- nire **automotorraz** berba egitea. Edorta Jimenez

---

automozio *iz* automobilgintza; ibilgailu motordunez egiten den garraioa.

Oraingoz, honako bost arlo hauetako beharginek egiaztatu ahal izango dute: turismo eta ostalaritza, **automozioa**, elektrizitatea, produkziozko fabrikazio mekanikoa eta mantenu nahiz produkzio zerbitzuak. Berria - Euskal Herria

Joera horren adibide garbia da **automozioan** gertazen dena: azpikontratazioa laguntza-lanekin hasi zen (garbiketak, mantenua, janaria, garrioa...), baina gaur egun oinarrizko ekoizpen prozesu zentralaren zenbait atal ere hartzen ditu. Iñaki Heras

"Modu garbiagoan" ekoitzi nahi dute biodiesela, **automoziorako**. Berria - Gaiak

---

autonabari *izond* bere horretan nabaria dena.

Hau da, argudio **autonabariak** dira, esperientziara jo beharrik gabe ezagut ditzakegunak -geroago a priori deiturikoak-. Askoren artean

---

autonabaritasun *iz* autonabaria denaren nolakotasuna.

Dena dela, uste ziur horrek forma anitz eta desberdinak hartzen ditu, adibidez esperientziarena enpiristentzat eta **autonabaritasunarena** razionalistentzat. Askoren artean

---

autonomia 1 *iz* estatu baten barnean bere burua hein batean gobernatzen duen herriaren egoera.

Autonomiaren hogei urte hauek, gure elkarbizitza bermatu dutela ahaztu barik ere, mota askotako lapur, ergel eta lotsabakoak sortu dituzte. Xabier Montoia

Atzo bilera egin zuten Espainiako Nekazaritza Ministerioko arduradunek **autonomia** erkidegoetako arduradunekin. Berria - Gaiak

Ostatuan, jendea bere lurraldearen **autonomiaz** mintzo da. Piarres Aintziart

Ez da ahantzi behar Euskadi errepublikaren alde jokatu zela, gobernuak hitzemana ziolakotz aspaldian galdatzen zuen **autonomia**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Argi zegoen, ordea, kolpea eman zutenek ez zutela gure eskubiderik eta gure **autonomiarik** errespetatuko. Juan Kruz Igerabide

Telesforo Monzonek hitz egin zuen lehenik, hangoa amaituta Tolosara joan beharra omen zeukan, horregatik bera lehenik, Madrilek behin eta berriz ukatzen zuen **autonomiari** buruzko hitzaldia ematera. Koldo Izagirre

Datorren urtean **autonomiari** buruzko erreferenduma da egitekoa. Berria - Harian

Gerora, **autonomia** lortu ondoren, ikusi ahal izan dugu gaitasun eza, utzikeria eta harrokeria administratiboa ez direla Espainiako hiriburuaren ondasun esklusiboa. Ramon Saizarbitoria

Irabazi zutelarik, argi zen denentzat ipar amerikarrek ez zutela inondiko **autonomiarik** bertako jendeei eskainiko. Ramuntxo Etxeberri

2 *iz* norbaitek edo zerbaitek bere kabuz aritzeko duen askatasuna edo askatasun maila.

Baina iloba honek poliki-poliki **autonomia** lortuko du, bere buruaren jabe egiten saiatuko da, bere kontura bizi eta benetako Gary ordezkatzen hasiko da. Joxean Agirre

Ikastetxeak zenbat eta **autonomia** handiagoa izan, orduan eta emaitza hobeak lortzen dituzte ikasleek. Berria - Harian

Ez nuke, bada, itxura faltsurik eman nahi, ez dut atsegin izateagatik **autonomia** galduko. Anjel Lertxundi

Errazagoa da hori onartu eta horretan uztea, eta nire poz eta tristura guztiak hormonen errua izan direla sinistea, baina hormonen esistentziak eta haien eraginak **autonomia** kentzen dit. Arantxa Iturbe

Maila berean jarri nahi dira, erien **autonomiaren** alde, betiere medikua lagun, aholkulari eta gidari dutela. Berria - Gaiak

Zientzialariek aspalditik ziotenez, esnea ugaztunek ume txikiei ematen dieten elikagaia da; ume hori **autonomiaz** jantzi ahala, amaren esneak bere rola galtzen du. Edorta Agirre

Literaturaren **autonomia** erreibindikatzeko garaiak joanak dituk dirudienez, ez zakiat noiz arte. Mikel Hernandez Abaitua

Baina, liburuaren azken aldera gertatzen da, postmoderniarekin erlatibismoa hain zuzen indibiduoaren **autonomia** eta askatasunaren lehen baldintza bilakatu dela. Joxe Azurmendi

Belaunaldi bakoitzak **autonomia** gradu diferentea eduki du: gure amak eduki zuena, nik eduki nuena eta nire alabak edukiko duena ezberdinak dira, ez dute zerikusirik. Ana Urkiza

3 *iz* ibilgailu bat erregaia berriz hartu beharrik gabe ibil daitekeen denbora edo distantzia.

Segurtasun arrazoiengatik, oso inportantea bide da argindar-etendurarik ez egotea Tetra martxan dagoen bitartean, eta horregatik bateria osagarri txiki batekin datoz, zortzi orduko **autonomia** ematen diena antza. Iban Zaldua

4 ***autonomi elkarte*** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***autonomia erkidego*** *agertzen da)*

Ondotik, Miren Mateo anderea mintzatuko da esplikatuz Euskal **Autonomi Elkartean** nolako jokamoldea duten euskararen hedatzeko. Herria

Jaurlaritzak onartu du eta beste zenbait **autonomi elkartetan** ere onartu dute. Berria - Euskal Herria

Zazpi herrialdek osatzen dabe Euskal Herria eta hiru administraziotan banatuta dagoz: Euskal Herriko **Autonomi Elkartea** eta Nafarroako Foru Komunitatea Estatu Espainiarrean, eta Iparraldea Estatu Frantseseko Pirineo Atlantiarren Departamentu barruan.". Juan Luis Zabala

"Euskadiko **Autonomi Elkarteak** bere Legebiltzarra dauka. Juan Luis Zabala

Batez ere hegoaldea, eta hegoaldean bereziki Euskadiko Autonomia Erkidegoa edo, bestela esanik, orduan batzuek Euskal **Autonomi Elkartea** deitzen zuten eremu hura. Pello Salaburu

5 ***autonomi estatutu*** *(ETCn* ***212*** *agerraldi)*

Proposamenak **autonomi estatutuak** arbuiatzen dituela salatu zuen Madrilgo Kongresuko EAJren bozeramaile Josu Erkorekak, eta dezentralizazioaren aurkakoak direla gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Hemen ez gara independentzia, subiranotasuna edo antzeko ezer eztabaidatzen ari, Kataluniaren **autonomi estatutu** berri bat baizik. Berria - Mundua

Zernahi gisaz, Zapatero-k berriz erakusterat eman du **autonomi estatutuaren** aldatze bat, zabaltze bat nolazpait, onar lezakeela Euskadiko legebiltzarrean gehiengo nasai batek babesten badu aldaketa hori. Herria

Baina antolatu ziguten **autonomi estatutuak** gure arazoa konponduko ez zigula uste genuenak asko ginen, eta era batera edo bestera borrokan segitzeko joera nabarmena zen. Jokin Urain

Euskadi izena ere, ordea, baliogabetua laga zuen **Autonomi Estatutuak** eta orduan Gora Euskal Herria Independentea eta antzekoak esaka hasi behar izan zuen, lehenago Gora Euskadi Askatuta oihukatze soilarekin konformatzen zenak. Hasier Etxeberria

6 *autonomia erkidego*

Etzi, abenduaren hirua, euskararen eguna da, ofizialki, iaztik **Autonomia Erkidegoan** . Joxerra Garzia

Ildo horretatik, Javier Rojok adierazi zuen hemendik gutxira **autonomia erkidegoetako** presidenteen eztabaida egin ahal izatea espero duela, eta presidente guztiak han egotea nahiko lukeela gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Oraindik ez dago garbi Rodriguez Zapaterok deitu asmo duen **autonomia erkidegoetako** lehendakarien konferentzia zertarako den, baina bat-batean munta handiko auzia bihurtu da Ibarretxe joango ote den. Berria - Euskal Herria

Euskadiko **Autonomia Erkidegoko** Autonomia Estatutuaren ostean, bertsozaleria estrategia politiko kontrajarrietan banatzen da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

7 *autonomia estatutu* *(ETCn **2.188** agerraldi)*

Legearen helburuetan aipatzen denez, "Euskal Autonomia Erkidegoak, Euskal **Autonomia Estatutuaren** arabera, eskumen osoak ditu hezkuntza eta ikerketa gaietan». Berria - Euskal Herria

Galiziarako **autonomia estatutuaren** eraketa eta defentsaren prozesuan funtsezko oinarria izan zen Boveda. Berria - Mundua

Garrantzitsuena agian, **Autonomia Estatutuaren** erreforma. Berria - Harian

Kataluniak, Euskadik eta Galiziak, gainera, kirolaren eskumena euren **Autonomia Estatutuetan** esklusibotzat jasoa dutela gogoratu zuen. Berria - Kirola

91 n ere, bere auzian, Filipek galdegiten zuen egiazko **autonomia estatutu** bat. Herria

Autonomia Estatutuaren onarpenaren ondorioz Eusko Jaurlaritza sortu zen hamarkada horren hasieran. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Autonomia estatutuetan bezala, atarikoak mamitsuagoak izan ohi dira. Iñigo Aranbarri

Iraultza horri esker, bazirudien, lehenbizian, bizkaitar abertzaleek hitzarmen bat eginen zutela Nafarroako karlistekin, Hegoaldeko laur eskualdeak besarkatzeko gisan, **autonomia estatutu** baten barnean. Piarres Xarriton

Euskadiko Autonomia Erkidegoko **Autonomia Estatutuaren** ostean, bertsozaleria estrategia politiko kontrajarrietan banatzen da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

1979an **autonomia estatutu** zabala lortu zuen, barneko administraziorako erabateko askatasuna ematen ziona. Bernardo Atxaga

8 *borondatearen autonomia* *(corpusean ez dago; ETCn **110** agerraldi)*

Lege horren helburua herritarrari haren bizitzaren bukaeran protagonismoa itzultzea da, haren **borondatearen autonomia** errespetatuz. ETC-prentsa

Horrela, lege honek bere araurik gehienetan lehentasuna ematen dio alderdien **borondatearen autonomiari** . ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala eta guztiz ere, sistema zibilaren printzipio nagusia **borondatearen autonomia** denez, kontratugileek hitzartu dezakete urte beteko edo bi urteko landa errentamenduko kontratua bat, hala nahi dutelako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehenik eta behin, alderdiek aukerauriko legeak eraentzen du, **borondatearen autonomia** nagusiaraziz; printzipio horrek duen muga bakarra hauxe da: legeak loturaren bat izan behar du kasuan kasuko negozioarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bereziki nabarmendu beharra dago gaixoen **borondatearen autonomiarekiko** errespetua, haiengan eragina duten osasun jarduera guztietan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edozein eskubide erreali buruzko printzipio orokorrak hau dio: eskubide errealak ordena publikoa ukitzen duela eta, aldiz, eskubide pertsonalak **borondatearen autonomian** duela oinarria. ETC-zientzia, zuzenbidea

Publizitatearen legediaren edukian egon daitezkeen agindu-izaera duten arauen ostean, publizitate-subjektuen **borondatearen autonomiari** onartzen zaion arloan sartuko gara. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tomismoaren aurka, giza **borondatearen autonomia** aldarrikatu zuen, arrazoiaren gainetik, borondatean zetzala fedearen funtsa. ETC-entziklopedia

Hots, kontratuak egitean, zuzenbide pribatua **borondatearen autonomian** oinarritzen da, baita herritarren askatasunean ere. ETC-entziklopedia

Ikuspegi indibidualista du nagusi, eta **borondatearen autonomiaren** dogma zaharretan oinarritzen da. ETC-entziklopedia

Kausazio-printzipioa unibertsalki nagusitzen den mundu honen erdian, zer toki geratzen da giza **borondatearen autonomiarako** ? ETC-literatura, saiakera

Kanti (1785) eta Korsgaardi (2006) jarraituz, autonomia moraltasunaren jatorri gisa onartzen dut: **borondatearen autonomian** edo askatasunean soilik aurkitu daiteke moralki jokatzeko gaitasunaren (borondate onaren) jatorria. ETC-literatura, saiakera

9 *Euskal Autonomia Erkidego*

Ibarretxek **Euskal autonomia Erkidegoko** gizartearen nahiarekiko begirunea aldarrikatu zuen Madrilen. Berria - Euskal Herria

Euskal Autonomia Erkidegoan , 7.000 gizonezko seropositiboa dago, baina zehaztu gabe dago horietako zenbatek duten bikotekidea edo horietako zenbatek izan nahi dituzten seme-alabak. Berria - Euskal Herria

Euskal Autonomia Erkidegoan bataz bestekoa 187 minutura jaisten da eta euskaldunen artean 150era. Txema Ramirez de la Piscina

Atzetik, **Euskal Autonomia Erkidegoko** eta Kataluniako herritarrak daude". Iñigo Aranbarri

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Estatuaren betiko dilema ezaguna da: zenbat eta abantaila gehiago eman, Kontzertu Ekonomikoa barne, orduan eta gehiago nahi. Joseba Zulaika

Hala ere, 2001eko maiatzaren 13an **Euskal Autonomia Erkidegoan** egindako hauteskundeen ondorioz berriz ere itxaropena sortu da maldaz betetako herri honetan. Pello Salaburu

Ez alferrik baitago bidegurutzean /... / (gurutz-bide itxura ere hartzen du tarteka, bai, zer esango dizut, hori ere egia da), gaur egun **euskal autonomia erkidegoko** hiriburu dena. Iñaki Arranz

Garbi dago **Euskal Autonomia Erkidegoko** edota Nafarroako Foru Erkidegoko agirietan ezin dela euskalkia erabili. Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalik eta autonomia (3); **autonomia aipatu** (3); **autonomia aldarrikatzen** (4); **autonomia areagotzeko** (3); **autonomia aurrearen** (3); **autonomia aurreko** (5); **autonomia babesteko** (3); **autonomia bat** (8); **autonomia batean** (3); **autonomia behar** (4); **autonomia berriro indarrean** (3); **autonomia berriz abiatzeko** (4); **autonomia berriz indarrean** (3); **autonomia berriz martxan** (6); **autonomia bertan behera** (13); **autonomia bi fasetan** (4); **autonomia da** (5); **autonomia duten** (3); **autonomia edo** (3); **autonomia eman** (5); **autonomia ematea** (5); **autonomia ematen** (4); **autonomia ere** (5); **autonomia erkidego bakarra** (3); **autonomia erkidego batean** (3); **autonomia erkidegoak dituen** (3); **autonomia erkidegoak eae** (3); **autonomia erkidegoan eae** (7); **autonomia erkidegoan ez** (3); **autonomia erkidegoan sartzeko** (3); **autonomia erkidegoarekin bat** (3); **autonomia erkidegoaren kasuan** (3); **autonomia erkidegoei** (8); **autonomia erkidegoek europako** (8); **autonomia erkidegoekin** (6); **autonomia erkidegoen esku** (9); **autonomia erkidegoetako presidenteekin** (3); **autonomia erkidegoetako presidenteen** (16); **autonomia erkidegoetan** (6); **autonomia erkidegoetara** (4); **autonomia erkidegoko aldizkari** (3); **autonomia erkidegoko ararteko** (3); **autonomia erkidegoko arartekoak** (5); **autonomia erkidegoko auzitegi** (6); **autonomia erkidegoko eae** (25); **autonomia erkidegoko errepideetan** (3); **autonomia erkidegoko estatutu** (3); **autonomia erkidegoko gobernuak** (4); **autonomia erkidegoko hauteskundeak** (3); **autonomia erkidegoko hauteskundeetan** (3); **autonomia erkidegoko hezkuntza** (4); **autonomia erkidegoko hiru** (4); **autonomia erkidegoko lanbide** (3); **autonomia erkidegoko lurralde** (3); **autonomia erkidegoko lurzoruaren** (7); **autonomia erkidegotako** (4); **autonomia erkidegotik kanpo** (3); **autonomia errespetatzen zen** (3); **autonomia eskatzen dute** (3); **autonomia eskuratu** (3); **autonomia estatutu** (8); **autonomia estatutuan** (7); **autonomia estatutuaren** (16); **autonomia estatutuk espainiako** (3); **autonomia eta independentzia** (4); **autonomia ez da** (3); **autonomia gehiago** (11); **autonomia handia** (3); **autonomia handiagoa emateko** (3); **autonomia handiagoa nahi** (3); **autonomia hauteskundeetarako** (3); **autonomia hori** (4); **autonomia itzultzeko** (5); **autonomia izan** (6); **autonomia izango du** (3); **autonomia izatea** (4); **autonomia kalea** (3); **autonomia kalean** (4); **autonomia kaleko** (4); **autonomia lortu** (4); **autonomia lortuko** (4); **autonomia maila handia** (4); **autonomia osoa** (6); **autonomia pertsonala** (3); **autonomia plan bat** (6); **autonomia politikoa** (3); **autonomia zabal bat** (4); **autonomia zabala** (3)

badu autonomia (3); **baina autonomia** (4); **baino autonomia** (4); **bakoitzaren autonomia** (4); **beste autonomia erkidego** (7); **bilbo euskal autonomia** (4); **bost urteko autonomia** (3); **campusen autonomia** (4); **da autonomia erkidegoek** (3); **da euskal autonomia** (11); **dago autonomia** (3); **dago euskal autonomia** (4); **dela autonomia** (3); **den autonomia** (4); **dira euskal autonomia** (4); **donostia euskal autonomia** (5); **du autonomia** (8); **du euskal autonomia** (9); **duen autonomia plana** (3); **dute autonomia** (8); **duten autonomia** (8); **eae euskal autonomia** (20); **edo autonomia** (4); **edozein autonomia** (3); **egun euskal autonomia** (3); **elkarteen autonomia** (4); **ere autonomia** (4); **eskualdeen autonomia** (3); **espainiako autonomia erkidego** (3); **espainiako autonomia erkidegoetako** (9); **espainiako gobernuak autonomia** (4); **estatuko autonomia erkidegoetako** (3); **euren autonomia** (9); **euskadiko autonomia erkidegoan** (7); **euskadiko autonomia erkidegoko** (5); **euskal autonomia elkarteko** (7); **euskal autonomia erkidego** (3); **euskal autonomia erkidegoa** (22); **euskal autonomia erkidegoak** (27); **euskal autonomia erkidegoan** (105); **euskal autonomia erkidegoarekin** (5); **euskal autonomia erkidegoaren** (23); **euskal autonomia erkidegoari** (15); **euskal autonomia erkidegoko** (217); **euskal autonomia erkidegorako** (8); **euskal autonomia erkidegotik** (5); **euskal herriko autonomia** (3); **gaixoaren autonomia** (4); **gasteiz euskal autonomia** (10); **genuen autonomia** (3); **gernikako autonomia** (4); **gero eta autonomia** (4); **gobernuak euskal autonomia** (3); **gure autonomia** (7); **hainbat autonomia** (3); **hurrengo autonomia hauteskundeetan** (3); **ibarretxe euskal autonomia** (3); **ikastetxeen autonomia** (6); **iparraldeko autonomia berriz** (6); **irlanda autonomia berrezartzeko** (3); **irlanda iparraldeko autonomia** (14); **irlandako autonomia** (3); **irlandako iparraldeko autonomia** (4); **irlandaren autonomia** (3); **jaurlaritzak euskal autonomia** (3); **kataluniako autonomia** (6); **kosovori autonomia** (4); **kurduei autonomia** (3); **kurduek autonomia** (5); **literaturaren autonomia** (3); **madrilgo autonomia erkidegoko** (6); **nafarroa euskal autonomia** (3); **nahiz eta autonomia** (3); **nolabaiteko autonomia** (8); **ppk euskal autonomia** (4); **proposamena autonomia** (3); **saharari autonomia** (3); **unibertsitate autonomia** (3); **unibertsitatearen autonomia** (10); **valentziako autonomia** (3); **zen autonomia** (6); **zenbait autonomia** (5); **zuen autonomia** (7); **zuen euskal autonomia** (4)

autonomi erkidego (8); **autonomi erkidegoak** (3); **autonomi erkidegoen finantzaketari** (4); **autonomi erkidegoetako** (5); **autonomi estatutu** (3); **autonomi estatutua** (3); **autonomi estatutuak** (3); **ere euskal autonomi** (3); **espainiako autonomi** (6); **euskadiko autonomi elkargoan** (4); **euskadiko autonomi erkidegoa** (3); **euskal autonomi elkartean** (4); **euskal autonomi erkidegoa** (4); **euskal autonomi erkidegoan** (16); **euskal autonomi erkidegoaren** (4); **euskal autonomi erkidegoko** (12)

unibertsitatearen autonomiarekin (3)

autonomiaren alde (7); **autonomiaren aldeko** (8); **autonomiaren eredua** (4); **autonomiaren izenean** (4); **gure autonomiaren** (3); **unibertsitate autonomiaren** (3); **unibertsitatearen autonomiaren** (5); **urteko autonomiaren** (3)

autonomiari buruz (7); **autonomiari buruzko** (5)

ahalik eta autonomiarik (3); **autonomiarik ez** (3)

autonomien arteko (5); **autonomien estatua** (9); **autonomien estatuaren** (3); **autonomien finantzaketa** (3); **autonomien parte** (3); **autonomien txapelketan** (3); **espainiako autonomien txapelketako** (3)

---

autonomiazale *izond* pertsonez mintzatuz, autonomia politikoaren aldekoa dena.

Datorren martxoan egingo diren Lurralde Asanblearako bozketetarako independentziaren aldekoak eta **autonomiazaleak** zerrenda bateratua osatzeko bide onean daude. Berria - Mundua

Ez daitezela tronpa Espainiazaleak eta **autonomiazaleak** ere, gure herria zatitzen duen autonomiaren kudeatzaileak beharbada. Berria - Euskal Herria

---

autonomiko 1 *izond* autonomia-erkidegoarena, autonomia-erkidegoari dagokiona.

Gutxienekoa da jakitea bulego hau gobernu **autonomiko** edo are zentraleko erakunde batekoa, banku, egunkari, profesional independiente batena edo are etxe partikularrekoa eta guztiz pribatua ote zen. Jon Alonso

Batasuna egongo da hauteskunde **autonomikoetan**, inongo dudarik gabe, ez dakigu legalak edo ilegalak izango garen, baina egongo gara eta eskaintza politiko zabal batekin. Berria - Euskal Herria

Atsegina izan zen mintzaldia, argitu behar izan banuen ere, euskara ez dela hizkuntza **autonomikoa**. Edorta Jimenez

Label demokratikoa lortu nahi omen dut horrela idatziz, egitura **autonomikoan** aurrera egiteko. Hasier Etxeberria

Erkidegoko legebiltzar **autonomikoko** parlamentari mutuetariko bat hemen, pare bat poesi libururen autoeditorea hor, sokakoa ez izan eta administrazioaren laguntza faltaz lantegia itxi berria zuen enpresari tikia han. Aingeru Epaltza

Bere iritziz, polizia **autonomikoak** esku hartu izanak erakusten du Eusko Jaurlaritza "patronalaren jarrera itxiaren konplize" dela. Berria - Ekonomia

2 *zuzenbide zibil autonomiko* *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Azken batean, arazoa bikote honetatik zein den terminorik egokiena erabakitzea da: zuzenbide zibil forala versus **zuzenbide zibil autonomikoa**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Honako gai honek Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Legea du abiapuntu, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen **Zuzenbide Zibil Autonomikoaren** arlo konkretu bat arautzen duena. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurraldearen arabera, sistema zibil desberdinak daude Espainian: batetik, lurralde osoan aplikatzen den zuzenbide zibil orokorra eta, bestetik, **zuzenbide zibil autonomikoak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontratu-mota honi, noski, bere eraentza juridiko propioa ezartzen dio legeak, hain justu 29. artikuluan: alderdien borondatea **zuzenbide zibil autonomikoa**, lege honek apartzeriari buruz ezarritako arauak eta, araudi ordeztaile gisa, lege honek landa-errentamenduei buruz ezarritako zenbait arau. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autonomiko bat (5); **espainiako polizia autonomiko** (3); **garai autonomiko berri** (3); **gobernu autonomiko** (3)

autonomikoa abenduak (5); **autonomikoa azaroak** (3); **autonomikoa urtarrilak** (4); **eredu autonomikoa** (4); **polizia autonomikoa** (4)

hauteskunde autonomikoak (4); **polizia autonomikoak** (3)

eredu autonomikoaren (5)

hauteskunde autonomikoei begira (5)

hauteskunde autonomikoen (9); **legebiltzar autonomikoen** (3)

hauteskunde autonomikoetan (13)

hauteskunde autonomikoetarako (4)

politika autonomikoko (3)

politika autonomikorako (3)

---

autonomismo *iz* politika-sistema, estatu bat osatzen duten eskualde edo erkidegoen autonomian oinarritzen dena; sistema horren aldeko doktrina.

Hortik aurrera beste hainbat irakurketa egin nahi izan dira; zenbaitzuek esan dute **autonomismora** itzultzea dela, baina nik ez dakit non ikusten den hori. Berria - Euskal Herria

Autonomismo ahoxuriaren zer-nola horiek, zehaztasunik gabeko definizioak, egitateak. Iñigo Aranbarri

Autonomismotik eginiko zerbait da, eta ez du kontuan hartzen Espainiako Gobernuak, Confebaskek, CCOOk eta UGTk 25 urtez Lan Harremanetarako Euskal Esparrua oztopatzen saiatu direla. Berria - Ekonomia

---

autonomista *izond/iz* autonomiaren aldekoa.

Edo beste era batera esanda, garapen-eredu **autonomistak** baztertu eta teknologiaren konstituzio soziokulturalaren berri ematea. Askoren artean

Gernikako Estatutuaren baliagarritasuna eta gaurkotasuna da **autonomisten** abiapuntua, eta Estatutua agortu denez beste estatutu bat behar dela, berriz, nazionalistena. Berria - Euskal Herria

Kontua da, alde batetik, ea "unitate politikoak" beti "Estatu" izan behar duen, edo, bestela esanda, zenbateraino den komenigarri supraunitateak osatzea edota Estatu barruan planteamendu **autonomistak** onartzea. Bernardo Atxaga

Buruzagi politiko **autonomistek** eta independentistek eskatu zioten menia, alderdi abertzaleen arteko koalizio bat sortu ahal izateko. Berria - Harian

---

autonomo 1 *izond* autonomia duena.

Miraz, gainera, eskuaren jokamolde **autonomo** hark beste sentimendurik ere ekarri ziolako gogora; sentimendu nahasi samarrak, baina ez zuen hartan gehiago sakondu nahi izan. Karlos Linazasoro

Kontzilioaren tesia hau zen: definizioz **autonomo** den mundu modernoan badago tirria espiritual handi bat. Piarres Aintziart

Klase borrokarako euskal esparru **autonomo** hura amaitzear zegoen, hala ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure itzalari so gelditu gara eta, hainbatetan legez, era **autonomoan** mugitzen dela iruditu zaigu, filme batean, gutariko bakoitzak sortzen duena beste norbaitek duela agintzen sinetsita. Koldo Izagirre

Gizakiaren hizkuntz gaitasunak hizkuntzaren diseinuari eta erabilerari dagozkion ezaugarri berezi batzuk ditu, adimenaren beste osagai batzuekiko **autonomo** samarrak.

Itziar Laka

Ordokia bost kilometrora baino ez zegoen, baina meategia errepublika **autonomo** koxkor bat zen alderdi guztietatik. Juan Garzia

Badakit pertsona **autonomoa** naizela, eta ez dut uste egiten dudanaren kontu eman behar dizuedanik. Josu Zabaleta

Zure eskuek pertsonalitatea dute, **autonomoak** dira. Alberto Barandiaren

Euskal Herrian beti familiak, elizak, tradizioak agintzen zuen; ez dugu izan subjektibitatearen edo kontzientzia **autonomoaren** tradiziorik. Joxe Azurmendi

Oi monarka ttiki **autonomook**, zeinen gaizki konprenitzen gaituzten beti! Patziku Perurena

2 *izond* langileez mintzatuz, bere kontura lan egiten duena.

Langabezi saria amaituta beltzean ibili beharra dauka, **autonomoetan** alta emanez gero zulora doa-eta artez. Urtzi Urrutikoeetxea

Hanka-arteko koskorretatik darion maitasuna zeinek jasoa falta eta bakarlanean, eskulangintzan edo **autonomo** gisa aspertua dagoen gizasemea putatara joaten da. Iñaki Segurola

Albert Pierrepoint ez zen funtzionarioa izan bere osaba Harry bezala; ia esan genezake langile **autonomoa** zela, bere kontura egiten zuela lan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Langune askotan enpleguen eraldaketa handia izan da: lanpostu tradizionalak desegin eta beste kontratu-lotura duten lanpostuak sortu dira, are baldintza kaskarragoekin (sasi-**autonomoak**, aldi baterako enpresentzat lan egiten dutenak, edota orduka lan egiten duten langileak). Iñaki Heras

3 ***auto autonomo*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Autogintzan eta gidaririk gabeko **auto autonomoan** erabakigarria izango da 5G teknologia. ETC-prentsa

Auto elektrikoarekin batera, **auto autonomoa** zabaltzen hasiko da. ETC-prentsa

Eta **auto autonomoak** izaten ditugunean, zer? Zeinek erabakitzen du auto horren portaera? ETC-prentsa

Ibilgailu autonomoa, ezaguna da ere gidari gabeko autoa bezala. **Auto autonomoak** giza kontrolaren ahalmenak imitatzen ditu. ETC-entziklopedia

4 ***erkidego autonomo*** *(ETCn **659** agerraldi)* ik **autonomia erkidego**.

Euskal **Erkidego Autonomoko** jokalariek osatuko dute taldea, eta Frantziako Bourgogneren aurka jokatuko du. Berria - Kirola

Madrilek argitu duenez, Espainiako Gobernuak eta **erkidego autonomoek** lehiatila bakar bat sortuko dute, eskariak batera egin ahal izan daitezen. Berria - Ekonomia

Dena den, Euskadiko **erkidego autonomoan** du ezak arrakasta handiena ukan, %33-etarat heldu baita. Herria

Udal eta **erkidego autonomo** askotako gobernuek antolatzen dituzten kirol eta kultura ekitaldietan babesle bakarra izaten da Corte Ingles. Berria - Harian

NBEko idazkari nagusiaren bake prozesuak planteatzen duenez, uharteak bat egingo luke bi **erkidego autonomok** osatuko luketen konfederazioan. Berria - Mundua

35. Espainiako **Erkidego Autonomoetako** IG gastua, BPGren ehunekoetan (2000 urtea). Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Berak esandakoaren arabera, haietatik 18-20 bat baino ez dira Euskadiko **Erkidego Autonomoan** bizilekua dutenak. Aingeru Epaltza

5 ***errepublika autonomo***

Larritasuna areagotzen ari da Georgia eta honetatik askatzeko borrokan ari den Hego Osetia **errepublika autonomoaren** arteko mugaldean. Berria - Mundua

Ordokia bost kilometrora baino ez zegoen, baina meategia **errepublika autonomo** koxkor bat zen alderdi guztietatik. Juan Garzia

6 ***eskafandra autonomo*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Eskafandra autonomoa edo urpeko arnasgailua asmatu zuen (Emile Gagnanekin batera), urpean filmatutako irudiekin ehundik gora dokumental osatu zituen, espezie ugari aurkitu zituen, eta itsaspeko bizitzaren dibulgatzaile nagusietakoa izan zen, besteak beste. ETC-prentsa

7 ***ibilgailu autonomo*** *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi)*

Ibilgailu autonomoa, ezaguna da ere gidari gabeko autoa bezala, auto autonomoak giza kontrolaren ahalmenak imitatzen ditu. **Ibilgailu autonomo** bezala inguratzen duen ingurunea nabaritzeko gai da. ETC-entziklopedia

Autoa: Lur arraseko **ibilgailu autonomoa**. ETC-literatura, saiakera

Hurrengo belaunaldietako sistemen artean izango dira 4 x 4 **ibilgailu autonomoak**, artikulazio malguak dituzten roboten kontroladoreak, manufaktura adimendunean oinarritutako sistemak, espazio-estazioak eta itsas hondoaren ikerketa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hori bai, aukera dago ontzia sokarik gabe ibiltzeko, **ibilgailu autonomo** gisan. ETC-prentsa

Alemanian argi dute: 2040rako **ibilgailu autonomoak** izanen dituzte kalean. ETC-prentsa

Azken urteotan probatzen ari diren **ibilgailu autonomoek** logika erabiltzen dute istripuek sortutako egoerei aurre egiteko, baina programatzaileek zehaztutako arauen arabera erabakitzen dute. ETC-prentsa

Ibilgailu autonomoen esparruan ere aurrea hartzen ari da Txina. ETC-prentsa

8 ***ikaskuntza autonomo*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Ildo horretan, ikasle-irakasle harremana aldatu eta irakasleak "ikaslearen gidari eta haren **ikaskuntza autonomo** eta esanguratsuaren bultzatzaile" izateko trebatu beharko duela adierazi zuen Abregok. ETC-prentsa

Apraitzek "ikaskuntza autonomoa eta esanguratsua bizi guztian zehar" duen garrantzia nabarmendu zuen. ETC-prentsa

Hasiak ginen **ikaskuntza autonomoa** bultzatzen, eta berebiziko ahaleginak egiten ikas-prozesuaren emaitzari baino, prozesuari berari begiratzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eskola-liburutegia informazio gizartean beharrezkoak diren konpetentziak eta **ikaskuntza autonomoa** garatzeko beharrezko baliabidea dela uste da. ETC-literatura, saiakera

Autoebaluazio interaktiboa nabarmentzen da ikasleen **ikaskuntza autonomoa** sustatzeko gaitasuna duelako; horregatik, garrantzi handia du Goi Hezkuntzako Europar Eremuarekin elkartzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikaslearen parte-hartzea sustatu behar da, kooperazioa landu eta **ikaskuntza autonomo** eta iraunkorra bultzatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikasleen aurrezagutzak aztertzen ditugunean, has gaitezke ikasgaia lantzen; baina jaso ditugun erantzunen arabera modu batera edo bestera eramango dugu aurrera gure programa, ikasleen **ikaskuntza autonomoa** bultzatu nahi baitugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

MA-ekin lan egiterakoan irakasleek lez ikasleek rol tradizionaletik aldentzen diren gaitasun berriak garatu dituzte, besteak beste, arrazonamendu kritikoaren aktibazioa, **ikaskuntza autonomoa** eta kolaboratiboa, arazoen taldekako ebazpena eta erabakitzeko gaitasuna. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hezkuntza-softwarea deitzen zaio irakaskuntzara eta **ikaskuntza autonomora** zuzendurikoari eta, gainera, gaitasun kognitibo batzuen garapena ahalbidetzen duenari. ETC-entziklopedia

Bigarren fasea, klasetik kanpoko ikaskuntzan zentratzen zen, beste era batera esanda, **ikaskuntza autonomo** eta nonahikoan. ETC-entziklopedia

9 ***komunitate autonomo*** *(ETCn **205** agerraldi)*

Gernikako Estatutua: "Euskal Herriko **komunitate autonomoak** eskatu ahalko dio Espainiako gobernuari itunak eta komenioak egin ditzala euskara zaindu eta bultza dadin». Berria - Euskal Herria

Era berean, Espainiaren menpeko **komunitate autonomoetako** balantza fiskalak berehala argitaratzeko exijitu zion Zapaterori ERCko buruak. Berria - Mundua

Turisten jatorriari buruzko atalean, kopuru handienak ematen dituzten **komunitate autonomoak** baino ez dira ageri: Euskadi, Katalunia, Gaztela eta Leon, Valentziako Erkidegoa, Andaluzia... Iñigo Aranbarri

10 ***langile autonomo***

Aldiz, beste herrialdeetan deklaratu gabeko lana eta **langile autonomo** faltsuak ugaritu egin direla dio txostenak. Berria - Ekonomia

Langileok, behin trebatu ostean, **langile autonomo** bihurtuko lirateke, eta kooperatiba bat eratuko lukete. Berria - Euskal Herria

Gaur egun Tirapu **langile autonomoa** da. Berria - Kirola

Albert Pierrepoint ez zen funtzionarioa izan bere osaba Harry bezala; ia esan genezake **langile autonomoa** zela, bere kontura egiten zuela lan. J.M. Olaizola "Txiliku"

11 ***mugimendu autonomo***

Mugimendu autonomoaren balio batzuk gorde direla iruditzen zaizu: autoantolakuntza, hierarkizazioaren aurkako jarrera...? Berria - Kultura

Jomuga nagusia da AHTren aurkako "borrokaren antolakuntza propioa sendotzeko bideak» aztertzea, eta, horregatik, osoko bilkura egin ondoren, **mugimendu autonomoa** bultzatzeko erari buruzkoa izan zen lan batzordeetako bat. Berria - Euskal Herria

Adibide bat aski izango da ulertzeko: hirurogeiko hamarraldian Japonian zinemaskopen filmatutako film askotan (Shohei Imamurarenetan batez ere) **mugimendu autonomoa** izaten du markoak. Josu Zabaleta

12 *prefektura autonomo* *(corpusean ez dago; ETCn **182** agerraldi)*

Orain bost eskualde autonomo daude Txinan, 30 **prefektura autonomo** eta 120 distritu autonomo. ETC-prentsa

Hubei probintzia, prefektura mailako hamabi hirik, **prefektura autonomo** bat, azpiprefektura mailako hiru hiri, eta konderri mailako baso gune batek osatzen dute. ETC-entziklopedia

Nujiang Lisu **Prefektura autonomoa**, Yunnan probintzian. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **autonomo bat** (16); **autonomo batean** (3); **autonomo bateko** (3); **autonomo baten** (7); **autonomo bezala** (4); **autonomo gisa** (12); **egitura autonomo** (3); **elkarte autonomo** (3); **erkidego autonomo** (7); **gobernu autonomo** (3); **komando autonomo antikapitalistek** (4); **komando autonomo antikapitalistetako** (6); **langile autonomo** (6); **lurralde autonomo** (4); **proiektu autonomo** (4); **udalerri autonomo** (4); **unibertsitate autonomo** (6)
>
> **autonomoa da** (9); **autonomoa dela** (4); **autonomoa egingo** (3); **autonomoa ez** (4); **autonomoa izan** (3); **autonomoa osatu** (3); **bartzelonako unibertsitate autonomoa** (3); **bilboko unibertsitate autonomoa** (3); **erakunde autonomoa** (3); **proiektu autonomoa** (4)
>
> **autonomoak berriz abian** (3); **autonomoak dira** (4); **autonomoak direla** (4); **erakunde autonomoak berriz** (5); **erkidego autonomoak** (3); **instituzio autonomoak** (5); **langile autonomoak** (4); **sasi autonomoak** (3); **unibertsitate autonomoak** (3)
>
> **elkargo autonomoan** (3); **era autonomoan** (5); **euskadiko erkidego autonomoan** (6); **gobernu autonomoan** (4); **modu autonomoan** (4)
>
> **erkidego autonomoaren** (3); **gobernu autonomoaren** (6); **langile autonomoaren** (3)
>
> **erkidego autonomoek** (3); **komando autonomoek** (3)
>
> **autonomoen esku** (4); **autonomoen federazioak** (3); **erkidego autonomoen** (6); **garraiolari autonomoen sindikatuak** (5); **herriko garraiolari autonomoen** (6); **langile autonomoen** (11); **udalerri autonomoen** (3)
>
> **erkidego autonomoetako** (4)
>
> **lurralde autonomoetan** (3)
>
> **autonomoko buru** (3); **bartzelonako unibertsitate autonomoko** (13); **erkidego autonomoko** (3); **gobernu autonomoko** (3); **madrilgo unibertsitate autonomoko** (8); **unibertsitate autonomoko irakasleak** (3)

---

autopista *(ETCn **2.058** agerraldi; orobat **autobide** ETCn **11.077** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **autobide** agertzen da)* *iz* ibilgailu motordunentzako errepide zabala, babestua, bidegurutzerik gabekoa eta bi noranzkoak bereizirik dituena. ik **autobide**; **autobia**.

Orain **autopista** pasatzen den inguru horretan taberna bat zegoen, eta han jotzeko. Pako Aristi

Biribila erabat, bekoki zabala, **autopista** bat bezalakoa, ilea kizkur, eta kobre-koloreko mataza batek zeharo inguratua. Jon Muñoz

Autopista ertzeko gau-klub hortera baten eran bonbilla kolore anitzez apainduak, hiriak benetan ziren bezalakoak agertzen ziren, mozorro guztietatik aske, mundua zen putetxe erraldoi eta mugagabea, denon bistara. Harkaitz Cano

Paradisu bat zena zementuz ito baitzuten, mila etxe eta beste hainbat dorre egiten zituztela, zabortegiak eta **autopista**, zentro komertzialak eta harrobiak, modurik antiestetikoenean. Joan Mari Irigoien

-Autopistetakoa "jarduera osagarria" baizik ez zuan Ripodasendako, Jabito eta Txuma direlakoekin hainbana. Aingeru Epaltza

Orain ez hainbeste, memoriak erraz atera du gertaera lauso artetik, Durangoko **autopistan** ordainsaria pagatzeko itxaroten zeuden auto batzuk aurrean eraman zituen kamioi aleman batek. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **autopista bat** (3); **baina autopista** (3); **hegoaldeko autopista** (3)

---

autoportu *iz* autoentzako portu eremua.

Hendaian, enpresagune berri bat eraikiko da lehengo **autoportuaren** eremuan. Herria

---

autopropultsatu 1 *izond* ezeren laguntzarik gabe mugitzen edo propultsatzen dena.

Labur esanda, diseinu-ezaugarri burutsu ugari dituen energia-iturri **autopropultsatu** gisa ikusten du ingeniariak gorputza. Irene Aldasoro

2 *jaurtigai autopropultsatu* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Torpedoa itsaso edo ur azpitik doan eta objektu bat ukitzean lehertzeko diseinatua dagoen **jaurtigai autopropultsatu** bat da. ETC-entziklopedia

---

autopsia *iz* gorpu baten organoen azterketa eta disekzioa, heriotzaren arrazoiak jakiteko egiten dena.

Ikasleak **autopsiak** egiten ikasten hasten direnean, irakasleek askotan estaltzen dizkiete begiak hildakoen gorpuei. Sonia Gonzalez

Haurraren amak gauak gauari ekar erazi zuen medikuak ez zuen ehorzteko baimenik eman eta prokuradoreak lehen epean **autopsia** manatu zuen. Herria

Erietxean, edo **autopsia** egiteko garaian, edo epaitegiko paperekin, edo... nik ahal dakit! Karlos Linazasoro

Gorpua arratsalde hartan ekarriko zuten Donostiara familiak eskatutako **autopsia** egiteko. Harkaitz Cano

Autopsietan eta, berrikiago, pertsona bizietan egindako zuzeneko miaketen ondorioz, ezagupen asko dago gaur egun garun-azalaren antolamenduari buruz. Irene Aldasoro

Autopsiak dio bihotzekoa burmuin eta biriketako edemek eragin zutela; ez dute sustantzia toxikorik atzeman hilotzean. Berria - Kirola

Ni **autopsia** sailekoa naiz, morguekoa, eta hildakoak ekarri eta ekarri ari ziren. Pako Aristi

Bost nebarrebok **autopsiaren** zain geundela, gure aita ohatilan etzanda zegoela, Imanol izan zen negarrez errementatu zena. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **autopsia bat** (3); **autopsia egin ondoren** (5); **autopsia egin zioten** (3); **autopsia eginen diote** (3); **autopsia egingo diote** (4); **autopsia egiteko** (19); **autopsia egiten** (4); **autopsia egitera** (7); **egin zioten autopsia** (3); **egingo diote autopsia** (6); **eraman zuten autopsia** (4); **gorpuari autopsia** (6)
>
> **autopsiak erakutsi** (4)
>
> **autopsiaren arabera** (6); **autopsiaren zain** (4); **egindako autopsiaren** (5)

---

autore 1 *iz* idazlan edo artelan baten egilea.

Autoreak filosofiaren kontzepzio jakin bat defendatzen du, eta, horren arabera, filosofiaren zeregin eta mugetatik abiatuz, metafisika eta epistemologiatik igaro eta etika aztertzen amaitzen du. Askoren artean

Oro, **autoreak** erabili ortografian, Iholdiko euskalkian, kantu bakotxaren zergatia eta ingurugiroa jakinaraziak zaizkigularik. Herria

Irakurlearen lana da pusketak elkartzea, eta nolabaiteko irudi bat lortu duenean, falta diren datuak ondorioztatu eta berak eman beharko du haren gaineko iritzi morala, **autoreak** ez baitio emango. Irene Aldasoro

Aristoteles baino mendeak lehenago, Herodoto egiten du estilo elkarbigiztatuaren eredu, beste **autore** greko batzuek zuten estilo periodikoaren aurrez aurre. Patziku Perurena

Klasikoen aipu bat, besterik ez, **autore** paganoengandik jasoa. Antton Olano

Autore guztiak bat datoz kontsumo nahiak etenik ez duela esatean. Berria - Gaiak

Lehenengo aldia da **autore** horren ezer eskuartean dudala, eta, izan ere, ez dut lehenengo ipuina baizik irakurri. Iban Zaldua

Antza zenez, **autorez autoreko** sailkapenari eusten zioten disko sortek. Aritz Gorrotxategi

Irakurle-**autoreen** artean jadanik lortutako intimitate honetan, poetaren berotasuna irakurleari kutsatzen zaio. Xabier Amuriza

Baliteke **autoreak** bere heriotzaren kausa aurreikusi izana. Irene Aldasoro

2 *autore zinema*

Hori ikusteak eraman izan ditu zenbait **autore zinemaren** narrazio-prozedura bereziak (bi narrazio mailaren, planoaren mailaren eta plano sekuentziaren mailaren artikulazioa) bestelako arteetan betidanik izan diren narrazio-prozedurak berriro hartu eta haiei jarraitzea baizik ez zirela esatera. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autore askoren iritziz (3); **autore askoren ustez** (3); **autore bakar** (3); **autore bakoitzak** (3); **autore bat** (8); **autore batek** (6); **autore baten bila** (5); **autore bati** (3); **autore batzuen arabera** (3); **autore batzuk** (3); **autore berak** (4); **autore bila dabilen** (3); **autore eskubidea** (3); **autore gehienek** (5); **autore gehienen** (5); **autore guztiak** (4); **autore guztiek** (3); **autore handien** (3); **autore hauek** (4); **autore hauen** (3); **autore honek** (9); **autore horiek** (11); **autore horien** (3); **autore horren** (8); **autore klasiko** (4); **autore ospetsu** (4)

beste autore batzuek (6); **beste autore batzuen** (3); **bi autore** (4); **cerca d autore** (3); **da autore** (6); **den autore** (4); **diote autore askok** (3); **diren autore** (3); **ditugun autore** (3); **duen autore** (6); **dute autore askok** (3); **duten autore** (3); **edo autore** (6); **hainbat autore** (3); **oso autore** (3); **pertsonaia autore bila** (9); **sei pertsonaia autore** (9); **zenbait autore** (6); **zuen autore** (4); **zuten autore** (5)

autorea bera (3); **autorea bere** (3); **autorea ez** (3); **baina autorea** (3); **da autorea** (3)

autoreak aitortu beharra (3); **autoreak berak** (6); **autoreak bere** (3); **autoreak ez** (3); **com autoreak** (3); **digu autoreak** (4); **ditu autoreak** (3); **geneveko autoreak** (3); **gure autoreak** (10)

autorearen izena (3)

autoreen eta editoreen (5); **autoreen lanak beste** (3); **diren autoreen** (3); **euskal autoreen lanak** (3); **sgae espainiako autoreen** (3)

hainbat autorek (6); **zenbait autorek** (13)

hainbat autoreren (3); **zenbait autoreren ustez** (4)

---

autoretza *iz* adierazten denaren autorea izatea.

Eta ez zen horrekin erabakitzen **autoretzari** zion errespetu gutxia. Bernardo Atxaga

Lan egiteko modu horrek **autoretzari** erromantizismoaren zati handi bat lapurtu dio, baina badu bertute ukaezin bat: lau begik bik baino hobeki ikusten dutela, eta hamar garunek batek baino gehiago pentsatzen. Berria - Kultura

Esana dago nola, ia hasieran, prosa turistiko ustez topikoaren azpian **autoretza** dudazkoen arazoa planteatu zitzaion itzultzaile taldeari. Iñaki Iñurrieta

---

autoridade ik **autoritate**.

---

autoritario 1 *izond* bere aginpidea indarrez edo larderiaz ezartzen duena. ik**larderiatsu**.

Maeztu-k, liberaletik **autoritario** bilakatua jada, Instituziokoak aitzindaritzat ezagutuko ditu. Joxe Azurmendi

Gezurra badirudi ere -gerentea pertsona **autoritarioa** baita-, onartu egin zuen, beharbada saltzaile hoberena berari ere ez zaiolako atsegina gertatzen. Ramon Saizarbitoria

Indarkeriazalea eta **autoritarioa** izanik, Zilonek ezin izan zuen jasan inor ausartu izana bere gogoari uko egiten. Jon Muñoz

Desbideratze kasu haluzinagarrienak gertatu ohi dira sistema **autoritarioenak** bideratzen diren herrietan eta, horrexegatik beragatik, halako tolerantzia dago giza bitxikeria harrigarrienen aurrean. Joxan Elosegi

Beharbada, bere umorea zakarragoa da nirea baino, eta bere tonua **autoritarioagoa** ; baina, auskalo, beharbada asper-aspertuta egongo zen Thulekoak bizkortzeko kanpaina haren lema eta mezu publizitarioekin, eta horrek bere onetik aterako zuen batzuetan. Bernardo Atxaga

2 *monarkia autoritario*

"Marokoko **monarkia autoritarioari** eta faxistari bost, ni gose greban hiltzea». Berria - Mundua

Monarkia autoritario eta faxista baten inguruan hitz egiten ari gara. Berria - Mundua

---

autoritarismo *iz* sistema politikoa, erabateko agintea izatean eta aginte hori nolanahi erabiltzean datzana.

Gure gizartean hain erroturik ditugun konformismo eta **autoritarismoari** aurre egiteko gomita da bere ekarpena, baita desobedientzia zibilerako deia ere. Txema Ramirez de la Piscina

Autoritarismoa zuen amak sesioetatik onik irteteko bide bat. Anjel Lertxundi

Urte hauetan guztietan beldurretik libratzeko prozesu izugarri luzea egin dugu, baina **autoritarismoak** bidea egin du gure gizartean eta antzinako formuletara jotzen ari da, beldurrera. Berria - Kultura

Ildo horretan, Washington kezkatuta agertu zen herenegun **"autoritarismo** keinuak" zirela eta. Berria - Mundua

Bere **autoritarismoak** hainbat protesta eta altxamendu sorrarazi zuen. Koldo Izagirre

Diktadurak eta **autoritarismoek** aurpegi asko dituztela aipatu dit Mariok; eder itxuran mozorrotzen direla nonahi. Jokin Urain

---

autoritate 1 *iz* aginpidea.

Hori bai, gerra garaian arazoetan sartu zenean, berak, mozoloak, dibertitzen ez zekien tristeak, haren alde egin behar izan zuen **autoritatearen** aurrean. Jokin Muñoz

Ordurako haiek jabetuta baitzeuden niri itzuri zitzaidan gauza batez: ja ez ginela gizaki libreak, **Autoritatearen** mende geundela han, eta halaxe egongo ginela eurak nahi zuten bitartean. Karlos Linazasoro

Baina, halaber, **autoritatea** ere bada, aginte-iturri nagusia, haurraren gain misterioski zertua eta bulkada batzuk arbitrarioki zapaltzen dituena, hauen bideetatik bizitza berria kanporantz irteten delarik. Iñaki Mendiguren

2 *iz* pertsonez mintzatuz, aginteduna. ik **agintari**.

Autoritateek ez zieten sinetsi, jakina, eta erotuta zeudelakoan Zamudioko zoroetxera bidali zituzten gizajoak. Paddy Rekalde

Berriak itzultzen eta **autoritateen** deklarazioak ebaki eta ongi koadratzen eta gehienetan itzulpena gainetik eransten nahikoa lan bazuten, eguraldiaren iragarpena ere itzuli egin behar, madrildar urrunerako iragarpena, gainera. Pello Zabala

Bederatzian, Eva Duarteren aldeko elizkizunak egin ziren katedralean, baina atzerri ministroa besterik ez zen azaldu **autoritateen** lerroetan. Koldo Izagirre

Argazki handi bat zekarren, aurreko abuztuko zezenketa batean **autoritateen** palkoa hartzen zuena. Josu Landa

Obabako **autoritate** bezala, gainera, Angelek zerikusi handia zeukan herrian egiten ziren obra publiko guztiekin. Bernardo Atxaga

3 *iz* gai batean sinesgarritasuna edo itzala ematen zaion pertsona.

Baina zer gertatuko litzateke baldin eta laidoek eta askonahiak aiten **autoritatea** besterenduko balute? Iñaki Iñurrieta

Modu horretan, **autoritate** exogeno batek, Jainkoak, arau moral absolutuak, Hamar Aginduak, ezartzen dizkigu. Askoren artean

Gitarra xumeki, pianoa duda-mudatan, melodia jario bigunean, bertso zehatza, ahots biluzia... ez dago beste **autoritaterik**. Joseba Zulaika

Taboureau andrea Lisaren adiskide mina zen, eta gauza guztien gaineko **autoritate** ukaezina zuen. Karlos Zabala

Bederatzian, Eva Duarteren aldeko elizkizunak egin ziren katedralean, baina atzerri ministroa besterik ez zen azaldu **autoritateen** lerroetan. Koldo Izagirre

4 ***autoritateen kontrol*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hauen bidez katalogazio lanetan sortzen zaizkigun hainbat zalantza, **autoritateen kontrola** eta abar argitzeko bide bat aurkituko dugu. ETC-literatura, saiakera

Autoritateen kontrola katalogo bibliografiko automatikoetarako sarbidea bateratu eta normalizatzeko prozesua da, egile, liburu, gai, erakunde, izen geografiko eta abarren zerrendak normalizatuz, katalogoetan homonimia, sinonimia eta antzeko izendapen-arazoak ebazteko. ETC-entziklopedia

5 ***ziurtatze autoritate*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ziurtagirien baliotasuna bermatzen duten zerbitzarien multzoa: **ziurtatze autoritateak**, erregistro autoritatea eta denbora zigilatzea. ETC-entziklopedia

---

autorizatu, autoriza, autorizatzen du *ad* baimena eman. *(corpusean agerpen bakarra, izenondo gisako partizipio burutua)*

Polemika sutsuen muina bihurtu zen De Architectura hura, denak ere obra horren esanahi "benetakoa", ezkutukoa, argitzen saiatu nahi zutenak, obra hori, izan ere, testu sakraturik onenaren gisa, hasieratik bertatik, kriptiko, ilun eta, beraz, bitarteko **autorizatuek** egin beharreko interpretazioen premian zegoela pentsatu baitzen. Santiago Iruretagoiena

---

autorregulazio *iz* norberaren burua erregulatzea.

Kodea behar bezala betetzen dela segurtatzeko, bi batzorde osatu zituzten: **Autorregulazio** Batzordea eta Jarraipen Batzorde Mistoa. Berria - Harian

---

autorretratu *iz* norbaitek bere buruari eginiko erretratua. ik **autoerretratu**.

Hala ere, azken hilabeteetan **autorretratuekin** harrituta nabil Bartzelonako grabatuari buruzko erakusketa ikusi ondoren. Berria - Kultura

Guztiok jartzen diogu adabakiren bat gure nortasunari, guztiok dugu zerbait gezurrezkoa, baina berak grina handiz eta egunez egun, bere biografia ukatuz, osatu zuen bere **autorretratua**. Joxean Agirre

Azken finean, Durero bera ere -hantxe ikusten nuen, bere **Autorretratuan** - ileluzea zen, bigote eta bizarduna, ez, inolaz ere, azal soilekoa. Bernardo Atxaga

---

autoskopia *iz* norberak bere gorputza kanpotik ikusi uste izanaren esperientzia.

Baina, oro har, zinez esan daiteke Maupassanten **autoskopiatik**, bere barne mundu esturaz betetik, direla sortuak. Josu Zabaleta

---

autosoma *(corpusean ez dago; ETCn **43** agerraldi) iz* sexu biologikoaren zehaztapenean eraginik ez duen kromosoma.

Autosoma sexu bietan berdina den kromosomari deritzo. ETC-entziklopedia

Gizon eta emakumeen 22 kromosoma-pare berdintsu horiek **autosomak** dira. ETC-entziklopedia

Giza genoma 46 kromosomatan banatua dago, hau da, 22 **autosoma** pare eta bi kromosoma sexual. ETC-entziklopedia

19.493 gene gutxi gorabehera eta kodetu ez diren 1.855 ARN lortu ziren. A, B, C, D, E eta F hizkiek kodetutako 18 **autosoma** osatzen dute. ETC-entziklopedia

DNAko **autosomako** frogek adierazten dute estepetatik mendebaldera emigratzean, Yamnaya kulturak Europan arbaso-osagai bat sartu zuela, "Antzineko ipar eurasiarra" izenekoa. ETC-entziklopedia

Sexua, ordea, X kromosomen eta **autosomen** arteko proportzioak determinatzen du. ETC-entziklopedia

Gure genoman hogeita hiru kromosoma pare dauzkagu: **autosoma** izeneko 22 pare eta alosoma sexu kromosomak izeneko pare bat. ETC-prentsa

Gurean, kromosoma sexual horietaz aparte, beste 22 **autosoma** bikote dago zelulen nukleoetan, bikotekide bana amaren obulu eta aitaren espermatozoidean ekarria. ETC-prentsa

Genomaren zatirik handiena hartzen duten 22 kromosoma pareei **autosoma** deritze. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

autosomiko *izlag* sexua zehazten ez duen kromosomari dagokiona.

Ezagutzen ditugu jada familia batzuk eritasun **autosomiko** azpiratzaileek latz astintzen dituztenak: Alzheimer-en gaitzak, koloneko minbiziak edo bularreko minbiziak, besteak beste. Juan Garzia

---

autostop ik **auto 3**.

---

autostopista *izond/iz* autostopa egiten duen pertsona. ik **autostopzale**.

Kamioitzarra ehun bat metro urrunago gelditu da, bazterbidean; gidariak azkeneko unean erabaki balu bezala, **autostopista** atzean utzi eta berehala. Iban Zaldua

Halaxe beraien zabalkundea, zeren eta O Mandarin edo Botilako deabrua-k, errepideko neska **autostopistaren** kontaerak bezala, edozein amandre-ipuin edo mamurenaren parekoa baitute. Bernardo Atxaga

Behin batean txundituta geratu zen bezero batek bere kamioian hartu zuen **autostopista** batekin ingelesez hitz egiten ikusi ninduenean. Joseba Urteaga

---

autostopzale *izond/iz* autostopa egiten duen pertsona. ik **autostopista**.

Autoa gelditu eta biok, ni eta nire **autostopzalea** autotik atera gara. Gotzon Garate

---

autosufiziente *izond/iz* autosufizientzia duena edo iradokitzen duena.

Indar sotila, **autosufizientea**, eta ondorioz sobran dago gure ekarpena begirada horretan. Berria - Kultura

Lukreziorentzat, ez suntsipena ez erabateko sorkuntza barik, transformazioa bakarrik egoteak esan nahi du natura bera dela, eta ez jakinkoak, bere baitatik diharduena, autonomoa eta **autosufizientea** dena. Xabier Amuriza

Gainera, emakumeak ikasi egin du, balio du, eta lan egin nahi du; **autosufiziente** izan nahi du. Berria - Gaiak

---

autosufizientzia *iz* norbaitek bere buruarekin aski izatea.

Naturaren autonomia eta **autosufizientzia** bere izaeraren consubstantzialak dira. Xabier Amuriza

Baina bakartia izateak eta bere kasa ibilaldi luzeak egiteak zaildu ere egin zuten, trebe bihurtu, independentziaren eta **autosufizientziaren** zentzua eman. Xabier Olarra

Artean, "autogestioa / **autosufizientzia** !" leloa errepikatzen zuen behin eta berriro Kloratitako abeslariak. Berria - Kultura

Halako gabezi urteak tokatu gabe ere, baserrikoa biziraupeneko kultura da izatez, autarkikoa, ahal den neurrian **autosufizientziara** jotzen saiatzen dena. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire onetik aterarazten ninduen ezjakintasuna ezkutatzeko erabili ohi zuen **autosufizientzia** hark. Ramon Saizarbitoria

---

autosuntsipen *iz* norberaren buruaren suntsipena.

Yin egoera berreskuratua, non gizakiak salbazioa aurkitzen baitu, ez da nerbiorik gabeko **autosuntsipenaren** bakea, tinko loturiko harmonia baizik. Iñaki Mendiguren

Rimbaud lehen aldiz irakurri nuenean sortutako bulkada sortzailea, sustraiak nire haurtzaroan dituen **autosuntsipenerako** bulkada, nigan emozioren bat sortu duten liburu, kantu edo pertsonetan sortzen den bizi bulkada. Berria - Kultura

---

autosuntsitzaile *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi) izond/iz* bere burua edo bera parte den osotasuna suntsitzen duena.

Autosuntsitzailea deritzo. ETC-literatura, saiakera

Uste dudan bezain **autosuntsitzailea**? ETC-literatura, saiakera

Gorputz kolektiboak norbanakoaren gorputzaren moduan funtzionatzen du: sistema neurosiak jota baldin badago, berehala sortzen ditu egitura **autosuntsitzaileak**. ETC-literatura, saiakera

Histerikoaren gozamena, eta, askotan, gozamen **autosuntsitzailea**, indar politikorik gabeko posizio batetik boterea eta ordena politikoak salatu, deszilegitu eta kinka larrian jartzea da, hots, subjektu politiko izateko eskubideari ez uko egitea. ETC-literatura, saiakera

Harik eta nire kontzientziaren zoko batean Yazîd iratzarri eta honela mintzatzen zitzaidan arte: "Zer da sentimendu **autosuntsitzaile** hori?". ETC-literatura, saiakera

Ezker abertzalean prozesu **autosuntsitzaile** bat eragiten du (zatiketak, hauteskunde galera, sinesgarritasuna galtzea, aliantzak apurtzea). ETC-prentsa

"Espiritu **autosuntsitzailea** " eta" eduki sexual handia" duten abestiak bildu dituzte, berriro ere, Strays diskoan. ETC-prentsa

Frantziako agintari politikoen konpetentzia hoberena entzutea bada, badaiteke euskal agintariena kaosa sortzaile eta **autosuntsitzaile** izatea. ETC-prentsa

Eta, asmo onez bada ere, Kataluniako eta EAEko Estatutuetan elementu **autosuntsitzaileak** daude ikuspegi nazionaletik. ETC-prentsa

Gero, zoritxarrez, aldi konplexuagoetan sartzen da patologia, hala nola mendekotasunaren amarru **autosuntsitzailean** erortzeari uko egin diotenak deabrutzen hasten da. ETC-prentsa

Nola aurre egin jarrera arriskutsu horri? Europaren oinarrizko baloreei eustea da kontua, **autosuntsitzaile** bihur ez daitezen. ETC-prentsa

Politikaren arloan, ezkerraren joera **autosuntsitzailea** deitoratzen du Chomskyk. ETC-prentsa

Esaterako, iragan larunbatean bere soul kutsuko kantuak klub, denda eta etxe guztietan entzutea erdietsi zuen Amy Winehouse izartxo **autosuntsitzaileak** hil zenean (27 urte). ETC-prentsa

Noski, horrelako haurtzaro **autosuntsitzaile** batek denei uzten die toke bat, gutxienez. ETC-prentsa

Haur horiek jarrera **autosuntsitzaileak** edo automutilatzaileak ere izan ditzakete. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mugako nortasunaren nahastea duenak eta nortasun disoziatuaren nahastea duenak emozioen ezegonkortasuna eta portaera **autosuntsitzailea** agertzen dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

autotransplante *iz* norberaren gorputz organo eta zuntzekin egiten den transpantea. A

ida Parejari **autotransplantea** eginen diote laster, martxoan. Berria - Harian

---

autotrofo *izond* izaki bizidunez mintzatuz, molekula inorganiko sinpleak erabiliz molekula organiko propioak sintetizatzeko gai dena.

Perrexila **autotrofoa** da, baratzean daukan hartaz elikatzen da, dagoen-dagoenean; gizakiok, ostera, heterotrofo, ipurtarinago eta kapritxotsuago, omen: jangai bila joan behar izaten dugu eta, iritsitakoan, aukeratu, garbitu, zuritu, ebaki, birrindu, egosi, etc. Edorta Agirre

---

autotxoke *iz* ferietako atrakzioa.

Autotxokeak talka berrietarako indarberritzen. Joxerra Garzia

Azaldu egin zidan, pedal hau, beste hori, palanka hau... **autotxoketan** bezala, erraza ematen zuen. Joxean Sagaztizabal

On Camillok zaldiko-maldiko bat, bilintzi-balantza bat, hiru tiro-joko, auto txikientzako pista bat, **autotxoke** bat, "heriotzaren horma" eta beste hainbat jostaleku gehiago aurkitu zituen. Koldo Biguri

---

autotzar *iz* auto handia; aparteko autoa.

-Bugatti horren barruan txoferra dagoelako, bestela oraintxe bertan izorratuko nuke **autotzar** hori. Joxemari Iturralde

Autotzarraren maletategi handia irekia zuen, arestiko argi mehe bakarraren errainupean berehala ohartu nintzenez. Aingeru Epaltza

Ateko bi zaindariek egin zioten agurrari erantzun ere egin gabe, aitak gazteluko ate nagusira jo zuen, aparkaturiko **autotzar** distiratsuen artean bide eginez. Alberto Ladron Arana

Giro serio samarra dago kanpoan, zaindariak, **autotzarrak**, jendea izkinetatik begira... Pako Aristi

Autotzarra, benetan! Sonia Gonzalez

---

autozain *iz* auto-gidaria.

Autozainaren ondoan ibiltzea goxo da, baina bizpahiru egun taula hutsaren gainean, ez! Marzel Etxehandi

Autozaina eta hunen laguna, biak bosniarrak, preso altxatuak izan dira.Autoa Marsellan matrikulatua baina **autozaina**, bakarrik zihoana, Urepelen sortua eta Angelun bizi. Herria

---

autozaingo *iz* autoeskola.

Herriko **autozaingoan** bere aita zenaren segida hartu zuen, denbora hartan arotz eta tresna arranjatzale trebea ere zelarik. Herria

Aipu da ere **autozaingoan** abiatu berriari, permisa ez gehiago alde bat emaitea bainan bakarrik hunenbeste denborarentzat. Herria

---

autozale **1** *izond* autoak maite dituena. ik **automobilzale**.

Autozale batzuk igaro ziren, jaramonik egin gabe. Gotzon Garate

Txikitatik zen **autozale** porrokatua. Fernando Rey

Autozaleek aukera bikaina izango dute asteburu honetan, bi proba jokatuko baitira. Berria - Kirola

2 *iz* gidaria, auto-gidaria. ik **autozain**.

Hain zeuden garesti erregaiak, non **autozaleek** gasolinarik ez hartzea erabaki baitzuten. Karlos Linazasoro

Hurrena **autozale** batek esan zuen ikusi zuela etxera bidean, hiriko periferian dauden semaforo horietako batean. Pako Aristi

Errepide probintzialaren mozketaldia ezin hobeto zihoan: autoak heldu eta gelditzen ziren, **autozaleak** biraoka hasten ziren, buelta eman zortzi-bederatzi kilometro atzera eta bigarren mailako errepideetatik abiatzen ziren, itzulingurua eginez. Koldo Biguri

---

autozauritu, autozauri(tu), autozauritzen du *ad* norberak bere buruari zauriak eragin. ik **autolesionatu**.

Hirugarren aldia du horrela **autozauritzen** dela Txamakok, eta oraingoan besteetan baino egun gehiago daramatza ankaiak bendatuta, bista galduko duela egin zidan ahapetik Gardelek lehengoan. Koldo Izagirre

---

autozentratu *izond* bere kasa zentratzen dena.

Elkargo barneko merkataritza herrialde kideen kanpoko trukeen % 70en baliokide da; hortaz, Europar Batasuna, hein handi batean, espazio **autozentratua** da, bestela esanda, modu autonomoan erregula daitekeen espazioa. Koro Navarro

Nor munduan zuek baino aberkoiago, **autozentratuago**, xuxenago eta xantuago? Iñaki Segurola

---

autozentsura *(ETCn **349** agerraldi, horietatik **181** azken sei urteetan) iz* norbaitek, politikaren edo moralaren aldetik aitzakiarik izan dezaketelakoan, bere lanei edo ekintzei ezarritako muga.

Horrela, anitzek sentitu dute barne kartzela kolektibo hori nola den, baita, zentsura edo **autozentsura** zer den. Ana Urkiza

Autozentsura asko darabilkigu orokorrean sorkuntzaren munduan bizi garenok, alde batetik trebeziak erakusteko garaian lotsak sartzen zaizkigu, edo aparteko harrokeriaz autodidakten istorio zaharra kontatzen dugu. Berria - Kultura

Hantxe bertan zapatak erantzi, eta oinekin zer arraio gertatzen zen ikusteko zorian egon zen, baina espaloiaren kuxidadeak eta **autozentsurak** halako lotsagabekeria bat egitetik libratu zuten. Karlos Linazasoro

Zure zalantza uneak (oso barneratua duzu **autozentsura**) salatu egin zaitu: nazionalista erradikal itsu bat zara! Joxe Azurmendi

Baina etsaiek ez dute gure **autozentsuraren** batere beharrik, Patri. Hasier Etxeberria

---

autozentsuratu, autozentsura(tu), autozentsuratzen du/da *ad* norbaitek, politikaren edo moralaren aldetik aitzakiarik izan dezaketelakoan, bere lanei edo ekintzei mugak ezartzea.

Ez ziren "familiakoei zor zaien errespetuagatik" zentsuratuko eta **autozentsuratuko** xehetasun guztiak? Iñigo Aranbarri

Horrek suposatzen du zure ekimenak **autozentsuratzea**. Berria - Harian

Beste ikuskera bat eskaintzen dutelako, sentiberatasun diferente bat, eta gure burua **autozentsuratzen** ikasi dugu alderdi batzuetan, eta hori ez da mesede emakumeentzat, gizonentzat baizik. Berria - Kultura

---

autozerbitzu *iz* erosi beharrekoak erosleak berak hartzen dituen zerbitzua edo denda. ik **supermerkatu**.

UCE kexu da **autozerbitzuen** prezioengatik. Berria - Ekonomia

Iaz 155 saltoki berri zabaldu zituen Eroski Taldeak; horietatik zortzi hipermerkatuak izan ziren, 28 Eroski center supermerkatuak, 26 Eroski cityak, 16 **autozerbitzu** frankiziatuak, 7 gasolindegiak, 24 bidai agentziak, zazpi Forum kirol dendak, eta 39 lurrindendak. Berria - Ekonomia

---

autozuzendu, autozuzen(du), autozuzentzen da *ad* norberak bere burua edo bere lanak zuzendu.

"Historiak erakutsi du, teknologia berriei esker, merkatua **autozuzendu** egiten dela", esan du epaileak. Berria - Gaiak

Bai, liburu honekin **autozuzendu** naiz. Berria - Kultura

---

autozuzenketa *iz* norberak bere lanari eginiko zuzenketa.

Autozuzenketa, poesiaz lagundurik. Joxean Sagaztizabal

---

autrigoi *(corpusean ez dago; ETCn **151** agerraldi) iz* antzinatean Euskal Herriko lurraldean bizi izan zen herri bateko kidea.

Autrigoiak tribu aurrehistoriko bat izan zen. Antzinako erromatarrek Hispania deitutako lurraldeko iparraldean aurkitu zuten tribuetako bat osatzen zuten. ETC-entziklopedia

Caro Barojak adierazi duen bezala, ez zen guztiz fin ibili leinuak eta zegozkien geografia-eremuak lotzean: ez du Gipuzkoaren mendebal karistiarra aipatzen eta Bizkaia soilik **autrigoiekin** identifikatzen du. ETC-literatura, saiakera

Eta bertakoen berri emateko, jende izenak, gens direlakoen deskribapenak ageri ditu: baskoiak, barduloak, karistiarrak, **autrigoiak**. ETC-literatura, saiakera

Batetik zeuden, **autrigoiak** gaur egungo Kantabrian, Burgosko eremu batzuetan eta Araba mendebaldean. ETC-literatura, saiakera

Pliniok **autrigoiak** topatu omen zituen bertan eta garai batean euskararen eremuaren barruan zegoela dio askok. ETC-prentsa

Ez garaiezin, eta ez bakartua: erroldaturik egon ziren baskoiak, barduliarrak, **autrigoiak**, karistiarrak eta akitaniarrak. ETC-prentsa

Adibidez, entziklopedia hartu eta Iberoak ikasten nuen, baina han ere agertzen ziren **autrigoiak**, baskoiak... eta artikulu bakoitzera jotzen nuen horiek ere jasotzeko; han zegoenaren ikuspegi osoa jasotzen nuen. ETC-prentsa

Barduliarrak, karistiarrak eta **autrigoiak** ez ziren euskaldunak; eta, entzun, Nafarroa aldeko baskoiak ere ez!; nahiz eta hau aho txikiarekin esan zuten, jakina baita zein suminkorrak diren nafarrak. ETC-prentsa

Egia esan, nire interesik handiena gure herriko datuetan dago, eta erakusten didatena da, barduliar, karistiar eta **autrigoiek** tinko dirautela gure artean. ETC-prentsa

Lerroa ozeanoaren ipar kostaldean hasten da, hau da, haren mendebaldean **autrigoiak** geratzen diren mugan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

autu 1 *iz* solasa.

Arima edo esentzia (karaktere, etc.) espainolaz **autua** ez da izaten, arima edo esentzia berba espresuki aipatzen denean bakarrik, noski. Joxe Azurmendi

Bien bitartean, iskanbila baretua zen eta Druida Nagusiak bere **autuarekin** jarraitu zuen. Joanes Urkixo

Pentsatuko duanez, lantokian ordurako ondo jakinean zegoan mundu guztia kontuaz, eta modu arraro samarrean begiratzen zidatean: italiarra zen sailburu bakarra nintzelako ere bai noski, eta ondo ere ondo imajina nitzakean nire bizkarrean erabiliko zituzten **autuak**. Juan Garzia

Handiagoa bide zen Pizkunde garaiko **autu** edo solasen eragina. Berria - Kultura

2 *iz* solasgaia.

Dibortzioaren **autuak** etxe barruan eztabaidatu behar dira, eskandalurik gabe. Andres Urrutia

Tira, geure **autura** etorrita, hurrengo egunetan ez nuen Luela ikusi, eta horri esker lasaiago ibili nintzen bizkarrean neuzkan loturak noiz kenduko zain. Javi Cillero

Zer-nolako zentzugabekeria zen hiriko biztanle guztiek aho-mihitan zerabilten **autu** hori? Jose Morales

3 ***autu-mautu***

Inork ez dezala pentsa, ordea, balio estetiko edo estilistikoen galbahea erabili dugunik: idazle nagusien maisulan onetsiak eta ezezagunen zirriborro ia galduak maila berean jarri ditugu, literatura gorenaren aldamenean ardandegietako **autu-mautuak** eta egunkarietako hitz gurutzatuak. Iñaki Arranz

---

autuan *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi) adlag* erriketan, solasean.

Laruelleri hurbiltzen zitzaizkion hauts artean; **autuan** zihardutenen, baina udako ilunabarrean Sorbonan zehar dabiltzan unibertsitateko irakasleen kontzentrazio sakonaren jabe. ETC-literatura, saiakera

Hor ibiltzen gaitun gu -sartzen da **autuan** beste emakume bat- geure pekatutxook zelan esan asmatu ezinda. ETC-literatura, saiakera

Kalpurnia ere, andere noblea, galdurik aurkitzen da, printzeak behin bere edertasuna laudatu zuelako, inolako irritsik gabe, pasadako **autuan** baizik; horregatik, Agripinaren sumina ez zen azkeneraino heldu. ETC-literatura, saiakera

Diderotek idatzitako _i_Jacques le fataliste_/i_ **autuan**, berriz, Kasandra leihoan honen maneran, maisu morroiaren eta ikasle jauntxoaren arteko elkarrizketek, jakintzaren ustezko neutraltasunaren aurka joz, hura gizarte harremanen arabera ulertzeko bidea eman ziguten. ETC-literatura, saiakera

Zer dute Torturaren kontrako mugimenduen aurka? Zerk mintzen die torturaren aurkako **autuan**? ETC-prentsa

---

autubatzaile *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* esamesaka ari den pertsona. ik **esamesari**; **txutxu-mutxuzale**.

Julia sinetsia dago, neskaren albisterik gabe kezkatuta haren berri jakin asmoz, spanish snooper **autubatzaile** bat bezala azaltzeko beldurra gaindituz penthousera igo izan den aldi bietan atea ireki ez zion arren barnean zegoela, [...]. ETC-literatura, saiakera

Bere kalea identifikatu ondoan, eta ezkaratzeko eskaileretan gora, horrelako gau irtenaldietan egin ohi zuenez, ez zitzaion lehenengo solairuko atso **autubatzailearen** pauso zelatarien astuna belarrietara iritsi. ETC-literatura, saiakera

Normalean azken saioan hain jende gutxi egoten denez, hobeto gozatzen dut ezezagunen konpainiaz, guri begira egongo diren **autubatzaileen** presentziarik gabe. ETC-literatura, saiakera

HOR.- Eusebio, ez dakizu zenbat **autubatzaile**, saltsero, masiatzaile dagoen herri honetan. ETC-telebista

JOSEMARI.- E, geldi hor, e! Has zaitez zu ere **autubatzaile** kaskarin horiek bezala. ETC-telebista

DANEL.- (Barrez) Aita, ama baino **autubatzaile** handiagoa zara zu! Gainera, ni ez nago nesketarako! ETC-telebista

---

auxiliar *izond* laguntzailea.

Errekete **auxiliarren** erakundea gizonez osatu zen, gerra ospakizun eta herriko beste jaiegun berezietan kaleetan gora eta behera ilaran ibiltzeko. Joseba Sarrionandia

Pailoten motoraren txanel **auxiliarra** hartzen zuen inori baimenik galdatu gabe eta portuko bertze muturreraino abiatzen zen, gaztelu zaharraren puskailen azpian dagoen iturriraino. Koldo Izagirre

---

auxina *(corpusean ez dago; ETCn **1278** agerraldi) iz* landareen hazkuntza eragiten duen hormona begetala.

Etxe barruko edozein landaretan erraz ikusi daiteke, leihoa edo argia sortzen den aldetik landarea kitzikatzen da eta **auxina** izeneko hormona pilatzen da, hormona honek zelula gehiago sortzea eta landarea harantz haztea dakar. ETC-prentsa

Gorbel-erauzkinak gaitz, izurrite eta izotzei aurre egiteko landareak indartzen ditu eta zitokinina eta **auxina** hormonak dituenez landareen hazkundea sustatzen du. ETC-prentsa

Euskal Wikipediak dioen eran, **auxina** izena grekotik dator:, auxano, hazkundea esan nahi du. ETC-prentsa

Giberelinak, pareta zelularren ezaugarri mekanikoak, metalekiko tolerantzia, **auxina** -garraioa eta estoma-irekiera ere ikertu ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sahats ura erabiltzen da **auxina** naturaltzat. ETC-entziklopedia

Lurpeko zatia pixka bat ebaki daiteke eta **auxina** fitohormonarekin (edo sahats-urarekin) igurtzi, sustraitze aukerak areagotzeko. ETC-entziklopedia

Auxina da hazkunde diferentzial horren arduraduna. **Auxinak** honako mekanismo honen bidez jarduten du: erantzun fototropiko negatiboa duenez, argi-eraginaren kontrako aldean kontzentratzeko joera du. **Auxina** zelula-ugalketarekin lotuta dagoenez, **auxina** -kontzentrazio handiagoa duten eskualdeko zelulak gehiago ugaritzen dira txikia den zelulak baino. ETC-entziklopedia

Honek **auxina** hazkuntza hormonaren banaketa asimetrikoa eragiten du eta grabitatearen aurkako norantzan hazten da landarea. ETC-entziklopedia

---

auzalan ik **auzolan**.

---

auzapez *iz* alkatea.

Auzapez eta hautetsiekiko harremanetan ere zailtasunak bazituen. Elena Touyarou

Ohargarri da ere kantonamendu horretako **auzapez** guziak salbu Colo agertu direla argi eta garbi euskal departamenduaren alde. Herria

Émilie hartaratzea izan nuen zailtasun bakarra, **auzapez** haren aberastasunak arranguratuxe baitzeukan. Jon Muñoz

Auzapezak dio ez dagoela kezkatzeko arrazoirik. Martin Anso

Aldiz apez eta apezkondo, aldiz **auzapez** edota Erregina Zuria bezalako jendail suertearen tankera gero eta handiagoa hartzen dio psikoanalistailari. Jose Angel Irigaray

Baionako EDFko ordezkaritza bat Jean Grenet Baionako **auzapez** eta diputatuarekin bildu zen. Berria - Ekonomia

Alderdietako buruzagien erdian, **auzapezek** xingola trikolorea zeramaten papoan zehar. Itxaro Borda

Aproposa esaldia, letra beltz handitan gure **auzapez** guziei paparretik zintzilik paratzeko. Patziku Perurena

Bere herriko **auzapez** hortz handiak nahiago ditu leku ederren eta handienak paristar dirudunentzat atxiki. Eneko Bidegain

Zakua pausatu ondoan eta **auzapezak** gomitaturik banoa bulegora. Piarres Aintziart

Tipo horren lana Frantziako **auzapez** batena da azken finean, pentsatu zuen Mikelek: dokumentazio administratiboaz arduratzen baitzen. Ramuntxo Etxeberri

Baina Gaztelako soldadua baldin bada, herriak arbuiatu eginen du; soldadu euskalduna bada, apezarena eta **auzapezarena** du bihotza; erregearena ez da izanen uniformea besterik. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **auzapez andana** (4); **auzapez anderea** (3); **auzapez bat** (4); **auzapez batek** (6); **auzapez batzuk** (3); **auzapez berri bat** (4); **auzapez berria** (20); **auzapez berriak** (10); **auzapez berriaren** (3); **auzapez bezala** (4); **auzapez dena** (5); **auzapez edo** (7); **auzapez egon zen** (6); **auzapez eta axuant** (5); **auzapez eta diputatua** (3); **auzapez eta diputatuak** (3); **auzapez eta hautetsi** (3); **auzapez eta kontseilari** (9); **auzapez eta kontseilu** (4); **auzapez gehienak** (4); **auzapez gisa** (5); **auzapez guzieri** (4); **auzapez guztiei** (3); **auzapez izan** (5); **auzapez izana** (5); **auzapez jarri** (5); **auzapez jauna** (3); **auzapez jaunak** (8); **auzapez jaunaren** (3); **auzapez kargua** (19); **auzapez ohiari** (5); **auzapez orde** (3); **auzapez zenaren** (5)
>
> **bigarren auzapez ordea** (3); **du auzapez** (4); **dute auzapez** (4); **eko auzapez** (5); **gure auzapez** (7); **guy poulou auzapez** (4); **hautetsi eta auzapez** (3); **herriko auzapez egona** (3); **hiriko auzapez** (4); **hortako auzapez** (3); **lehen auzapez** (3); **urte huntan auzapez** (3); **urtez auzapez** (3)
>
> **auzapeza bera** (8); **auzapeza berriz** (3); **auzapeza ere** (12); **auzapeza eta axuantak** (4); **auzapeza eta axuanten** (3); **auzapeza ez** (4); **auzapeza izan** (4); **auzapeza izateaz gain** (4); **auzapeza mintzatu** (3); **auzapeza zen** (3); **gure auzapeza** (3); **herriko auzapeza** (17); **hiriko auzapeza** (3); **oraiko auzapeza** (4)
>
> **abisu jaun auzapezak** (4); **andere auzapezak agurtu** (3); **andere auzapezak bere** (5); **andere auzapezak irakurtu** (5); **auzapezak agurtu ditu** (3); **auzapezak aipatu ditu** (6); **auzapezak aipatu du** (5); **auzapezak azpimarratu du** (10); **auzapezak berak erran** (3); **auzapezak bere kontseiluarekin** (6); **auzapezak berriz** (4); **auzapezak bildu dira** (3); **auzapezak bilkura** (4); **auzapezak dauka** (9); **auzapezak deneri ongi** (3); **auzapezak dio** (19); **auzapezak du** (5); **auzapezak egin daizkio** (3); **auzapezak egin daizkiote** (3); **auzapezak egin diote** (7); **auzapezak egin du** (3); **auzapezak eman** (6); **auzapezak erabaki du** (3); **auzapezak ere** (10); **auzapezak erran du** (12); **auzapezak eskaini** (7); **auzapezak eta herriko** (3); **auzapezak eta kontseiluak** (5); **auzapezak eta maixan** (3); **auzapezak ez du** (19); **auzapezak gaitzetsi** (3); **auzapezak gomitaturik** (3); **auzapezak gutun** (3); **auzapezak herriko** (3); **auzapezak hitzeman du** (4); **auzapezak hor** (4); **auzapezak ihardetsi dio** (5); **auzapezak ihardetsi diote** (3); **auzapezak irakurtu du** (5); **auzapezak izenpetu** (3); **auzapezak jakin arazi** (9); **auzapezak jakin arazten** (7); **auzapezak jakinarazi du** (3); **auzapezak jakinarazten du** (14); **auzapezak jakitera** (3); **auzapezak lanak** (3); **auzapezak moztu du** (3); **auzapezak nahi** (4); **auzapezak ongi etorri** (4); **auzapezak ongi etorria** (5); **auzapezak proposatu** (5); **auzapezak salaketa** (3); **auzapezak segurtatu du** (5); **auzapezak segurtatzen du** (3); **auzapezak urte** (5); **auzapezak zion** (3)
>
> **auzo herrietako auzapezak** (3); **azkarateko auzapezak** (3); **azpimarratu du auzapezak** (3); **bilkuran auzapezak** (3); **biriatuko auzapezak** (5); **dio auzapezak** (5); **ditu auzapezak** (4); **gure andere auzapezak** (3); **gure auzapezak** (10); **hiru auzapezak** (3); **hortako auzapezak** (3); **jaun auzapezak aipatu** (3); **jaun auzapezak jakinarazten** (7); **jaun auzapezak ongi** (3); **ondotik andere auzapezak** (3); **oraiko auzapezak** (3); **tokiko auzapezak** (3); **zuen auzapezak** (6)
>
> **auzapezarekin bildu** (3); **ziburuko auzapezarekin** (3)
>
> **andere auzapezaren** (8); **auzapezaren agiantzak** (6); **auzapezaren aldekoek** (3); **auzapezaren arabera** (8); **auzapezaren denboran** (3); **auzapezaren eskutik** (6); **auzapezaren hitza** (3); **auzapezaren hitzak** (3); **auzapezaren inguruan** (14); **auzapezaren kontra** (4); **auzapezaren lehen** (5); **auzapezaren ongi etorriarekin** (4); **auzapezaren ongi etorriaren** (4); **auzapezaren ordezkari** (3); **auzapezaren ordezkaria** (3); **auzapezaren zerrendakoak** (3); **auzapezaren zerrendan** (3); **dute auzapezaren** (3); **edo auzapezaren** (3); **herriko auzapezaren** (4); **jaun auzapezaren aintzinean** (3)
>
> **andere auzapezari** (3); **auzapezari behar dena** (3); **auzapezari eman** (4); **auzapezari galdegina** (4); **dio auzapezari** (5); **dute auzapezari behar** (3); **jaun auzapezari** (7)
>
> **auzapezek beren** (4); **auzapezek ez** (4); **bi herrietako auzapezek** (3); **hiru auzapezek** (3)
>
> **auzapezen artean** (7); **auzapezen biltzar** (3); **auzapezen biltzarburu** (3); **auzapezen biltzarra** (9); **auzapezen biltzarrak bere** (3); **eskualdeko auzapezen** (3); **euskal herriko auzapezen** (7)

---

auzapezgo *iz* alkatetza, auzapezaren kargua.

Duela hiru urteko herriko bozetan Coumeti Hazparneko **auzapezgoa** 24 bozengatik ez ziola kendu oroitarazi zuen gainera, atzo. Berria - Euskal Herria

Berak erran du garbiki halako ximiko bat egiten ziola **auzapezgoaren** hola uzte horrek. Herria

---

auzapezorde *iz* alkateordea.

Xabier Aierdi Mauleko kultura **auzapezordeak** azpimarratu zuen Zuberoako hiriburuko udalak asmoa daukala festibal honen egonkortasuna bermatzeko. Berria - Kultura

Jean Etxepare Iotinant ohi **auzapezordeak** egin zuen beraz egunari zegokion hitzaldia. Piarres Xarriton

Txingudi Ekologia taldeak salatu du Hendaiako **auzapezorde** Daniel Allaumek osatu eta zuzendu duela etxegintza plana. Berria - Euskal Herria

---

auzategi *iz* auzoa.

Hiri inguruetako **auzategietan** bizi ziren Aaronen ondorengo apaizei eta erroldan zeuden lebitarrei zegokiena emateko, gizon batzuk zeuden izendatuak hiri bakoitzean. Elizen arteko biblia

Angulok ezer ez badaki horretaz, esango diot itzuli bat egiteko **auzategian**. Javi Cillero

---

auzi 1 *iz* epaile batek erabaki behar duen arazo eztabaidatua.

Lokatzezko oinarri irristakor horrekin, edozein epailek botako duela **auzia** atzera. Hasier Etxeberria

Iazko abenduaren 9an, **auzia** artxibatzeko eskaera atzera bota, eta prozedurarekin aurrera jarraitzea ebatzi zuen hirugarren aretoak. Berria - Kultura

-Bistan dena ohartu zirela Mutikoa eskapatu zen, bainan noizbait atxeman zuten eta **auzirik** gabe hil. Eneko Bidegain

Di-da hiltzen zuten jendea sarritan, zeremoniak soberazkoak zirelakoan, baina besteetan **auzi**, burokrazia askorekin hiltzen zen, eta batzuetan bi eratara egiten zen. Joseba Sarrionandia

Eta, gainera, horrelako **auzi** luze bat zabaltzen bada, Boiengek jasotzen dituen laguntzak sartuz, Airbus 380 hegazkina ekoizpen prozesuan dago jada. Berria - Ekonomia

Marimaistra haietako bi ahizpak ziren eta bakarrik bizi ziren, aita xaharrarekin, zeinari, denbora batean hagitz aberatsa izan bazen ere, dirubideak porrot egin zion eta beti harat-honat ibiltzen zen abokatuekin **auzi** bat zela eta. Fernando Rey

Euskal munduari lotzen gintuena Burgosko **auzia** zen. Ana Urkiza

Auzian zuzenean inplikatu dute, eta orain bere interesak defendatu beharko ditu. Berria - Kirola

Auzia berriz hasirik, gaitzeko giro nahasian bixtan dena, Gorka Torre kondenatua izan da ehun egunez egun bakoitx 15 euroaren ixuna pagatzerat, bestenaz preso joan behar! Herria

2 *iz* edozein arazo edo jardun eztabaidagarri.

Baina zementuaren **auzi** honetan, guztian bezalaxe, mailak eta mailak daude, eta ez dago dudarik Soroetako Perminek hautsi zituela marka guztiak. Joan Mari Irigoien

Hortaz, esapide hoberik ez eta, ziur nago aho-aroan finkatua deitzen duten egoera horretan ondo egokitzen naizela, urteak eman nituen deus ere ulertu gabe, eta nozio horren bidez konpontzen dut **auzia**. Karlos Zabala

Zuhurtzia handiz, bere kabuz utzi zuen epailetza, ez baitzen gauza errukiz ikusteko **auzian** tarteko zen inoren motiboak. Xabier Olarra

Konturatzen hasia nintzen ekonomiaren, industriaren eta **auzi** praktiko deritzen horien mundua ez zela literaturarena eta filosofiarena baino askoz ere sendoagoa. Koro Navarro

Sartzen hinduten eta aste pare bateko zigorra izan behar zuena urte eta gehiago bihurtzen zuan, halako beharra zeukaten hainbeste **auzi** eta kontseilugaz, ahaztu egiten zituan hire kasuaz. Koldo Izagirre

Buen Lacambrak ezin duela izan Arartekoaren bigarren, Alardearen **auzian** egindako bideagatik. Hasier Etxeberria

Argi dago **auzi** garrantzitsu batez mintzatzen ari direla telebistan. Lutxo Egia

Baina **auzia** beste puntatik hartuz, etsi bat ahal bezala harturik aise hobe nuela, Magali nondik izanen zen enea, hoin aise itzultzen beste baten besoetarat, alta harekin aski gaizki ibilia zen beste batenganat. Janbattitt Dirassar

3 *administrazioarekiko auzi errekurtso*

Aurkako ahotsik ere bada, ordea; herritar batzuk, kontra, **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** aurkeztu zuten duela bi urte. Berria - Euskal Herria

Akordioa lortuz gero, Jaurlaritzaren ebazpenaren kontra ipini zuten **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** indar barik geratuko litzatekeela uste baitute. Berria - Euskal Herria

4 *auzi areto* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Puma ere ekarri zuen **auzi-aretora**. ETC-literatura, saiakera

Auziperatuen abokatua irudikatu nuen **auzi-aretoan** niri galdezka. ETC-literatura, saiakera

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren (TSJPV) Administrazioarekiko **Auzi-Aretoan** ezarri du errekurtsoa sindikatuak. ETC-prentsa

Auzi aretoan geratu ziren, ordea, giltzapetuta ez dauden bi lagun bakarrak, hauek direla Belen Lopez Calderon eta Antonio Lago Iglesias. ETC-prentsa

Batzuetan, esperpentotik gertu zegoen **auzi aretoan** ikusi genuena, baina ez zien axola; helburua garbia zen, eta batere gorritu gabe eraman zuten bukaeraraino. ETC-prentsa

Auzi-aretoak bezain hotza den eremu batean jarri dituzte bi pertsonaiak antzezlanean, epailea espedientez betetako mahaiaren atzean eta akusatua beste muturrean, aulki soil batean eserita. ETC-prentsa

Epaiketak irauten duen bitartean, **auzi aretoan** sartzen ez diren kazetarientzako lan lekua paratu dute Goreneko arduradunek. ETC-prentsa

Auzi-aretoetan egiten direnak, jakinarazpena nori egin eta pertsona horri oso-osorik irakurrita gauzatuko dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Agente judizialak edo salako ofizialak egingo ditu epaitegiko edo auzitegiko **auzi-aretoetatik** kanpo burutu beharreko jakinarazpenak, zitazioak eta epatzeak, hurrenez hurren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Abokatuak **auzi-aretoko** aulki arruntetan jesartzen dira. ETC-entziklopedia

5 *auzi eman* auzitara eraman.

Semearenganako utzikeria argudiatuz, Kristinari **auzi eman** eta Unairen zaintza eskatzea, horra zer ibili zitzaidan, istant batez, gogoan. Aingeru Epaltza

6 *auzi-entzule*

Jauna, **auzi-entzuleon** aurrean asmo gaiztoaren ukapen honek nazala hain errugabetu zure gogo-bihotz guztiz zabalean, nola baininduke, etxe gainera bota gezia, eta anaia zauritu banu. Juan Garzia

7 *auzi-eske*

Irungo tabako denda batek Estatuaren aurkako lehenengo **auzi eskea** egin du. Berria - Euskal Herria

Eta horretarako prest du gerra kabinetea, Bill Clintonen aholkulari izandako Chris Lehanerekin eta Mark Fabianirekin batera, Fahrenheit 11/9 filmaren kontra akusaziorik txikienari **auzi-eskea** jartzeko prest. Berria - Kultura

Auzi-eskeak milaka iritsi omen dira epaitegira, leku askotatik. Jose Morales

Eta, bitartean, mordoka iristen ziren **auzi-eskeak** epaitegira. Jose Morales

Marcel Martinen kasua Semiplena probatio bat zen, **auzi eskea** egiaztabide frankorekin aurkeztu baitzuten. Ramon Saizarbitoria

Gotzainak, gizon zuhur eta jakintsua bera, behar zen moduan dei egin zion Frantziskori, beraren aurrera agertu eta aitaren **auzi-eskeari** erantzun ziezaion. Askoren artean

8 *auzi-etxe* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Auziak ere, herrian erresolbitzen ziren: auzo-etxea, **auzi-etxea** zitekeen. ETC-literatura, saiakera

9 *auzi gela* *(orobat **auzigela**)* auziak erabakitzen diren gela.

Horren gatik ez da uste gabekorik gertatu, **auzi gela** ez da huts arazia izan. Herria

Mona neska gazte bat da, **auzigelan** istilua sortu zuena Dorothy Troterri, hau ere zineko estra, hiru urteko kartzela-zigorra jarri ziotenean bere burua errudun deklaratu ondoren lapurreta larria egin izanaz. Fernando Rey

Eta polizak bazterrak ito zituen nigar egin-arazteko gasakia hedatuz **auzigelan**, denak harritu baitziren! Herria

auzigelako epaileek aintzat jo dute prokuradoreak, joan den martxoaren 6an, eskatutako zigorra. Berria - Mundua

18/98 auziak oihartzuna hartu du tamainagatik, auzipetuta dauden lagunen kopuruagatik eta izaera, adin eta jatorri diferentetako lagunak ikusten direlako **auzi gelan**. Berria - Euskal Herria

10 *auzi-ihesean* *(corpusean ez dago; ETCn **120** agerraldi)*

Hau **auzi-ihesean** emandako epaien kasuetarako aurreikusten da; hau da, auzipetuari epaitegian aurkezteko jakinarazi zaionean baina ez agertzea erabaki duenean. ETC-entziklopedia

Gainerako euskal presoentzat eta **auzi-ihesean** epaitutako beste bi euskal herritarren aurka, berriz, bost eta bederatzi urte bitarteko eskaerak egin zituen fiskalak. ETC-prentsa

Gertaera harengatik hiru gobernukide ohiak **auzi-ihesean** daudela esan du Auzitegi Gorenak, eta ondorioz, "atzemate agindua" ezarri dute hiruren kontra. ETC-prentsa

Halaber, hamar eguneko epea eman dio epaileak De Juanari Auzitegi Nazionalean agertzeko; hala ez bada "**auzi ihesean**" aritzea egotziko diola ohartarazi dio. ETC-prentsa

HB eta EH ez ziren aurkeztu, eta "**auzi** ihesean" izango dira epaituak. ETC-prentsa

Azken hori **auzi ihesean** izan zen. ETC-prentsa

Hassana Aalia epaiketa militarrean zigortutako 24 ekintzaileetako bat da: bizi guztiko kartzela zigorra ezarrio zioten, **auzi-ihesean** epaitu bazuten ere. ETC-prentsa

Halaber, beste lau enpresa **auzi ihesean** epaituko dituzte, ez dituztelako epaiketarako ordezkariak izendatu: Circuito del Norte, Basque Robot Wheels, Vilau Media eta Innovalab. ETC-prentsa

Urte horretan, Parisko Auzitegiak Urrutikoetxea zortzi urtera zigortu zuen **auzi ihesean**, 2011-2013 urteetan ETAren egitura politikoan aritzea egotzita. ETC-prentsa

Ez badira agertzen, **auzi-ihesean** daudela adieraziko da, eta jardunak aurrera egingo du horiei zitazioa berriro egin gabe. ETC-zientzia, zuzenbidea

Instrukzio-epaile bakoitzak, orobat, **Auzi-ihesean** dauden Auzipetuen Erregistroa izeneko liburua eramango du, zigortuen libururako ezarri formalitateekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Epaileak pertsona bat **auzi-ihesean** dagoela jo ahal izateko, orain aztertuko ditugun egoera hauetakoren bat gertatu beharko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezkontide biek parte izan behar dute auzitegi katolikoek egindako prozeduran, hau da, **auzi-ihesean** eman den epaia ez izatea. ETC-zientzia, zuzenbidea

11 *auzi-iheslari*

Lehenengoan, auzibide zibilez ari denean, auzi-**iheslariak** kondenatzea debekatzen zaiei epaileei, errua frogatu gabe dagoenean gai zibiletan. Juan Martin Elexpuru

Beraz, dirua zor duen gizon bat ezin daiteke kondenatu auzi-**iheslari** gisa, bere zorra frogatuta ez dagoen bitartean; Baina bizitza-kontua denean, kondena daiteke auzi-**iheslaria,** nahiz eta bere krimena frogatu gabe egon. Juan Martin Elexpuru

12 *auzi ikerketa*

Horrela, ezin daiteke presidentearen, gobernuko buruaren, Legebiltzarreko, Senatuko eta Auzitegi Goreneko presidenteen aurkako **auzi ikerketarik** egin. Berria - Mundua

13 *auzi-jartzaile* *iz* auzia jartzen duen pertsona.

Auzi-jartzaileak bere testigantza adierazten zuen auzia ezartzeko; salatutakoak bereak adierazten zituen bere burua zuritzeko; eta epaileak egia bilatzen zuen testigantza batzuen eta besteen artean. Iñaki Iñurrieta

Zenbait **auzi-jartzaile** eta lekukok, berriz, bere buruaz beste egin dute eta hainbat proba desagertu egin dira, komunikabideek diotenez. Berria - Gaiak

Kay Wadey auzi- **jartzaileetako** batek azaldu zuenez [...]. Berria - Gaiak

Europako Auzitegiak kasu honetan **auzi-jartzailea** izateko zilegitasuna ukatu dio Eusko Jaurlaritzari. **Auzi-jartzaileen** argudio nagusia ere horixe izan zen. Berria - Euskal Herria

Auzi horrek ez du ohiko bide burokratikoa hartuko, ni neu izango bainaiz **auzi-jartzaile** eta salatzaile, eta ezin gezurtatuzko frogak aurkeztuko ditut. Jose Morales

· *izond* Eduardo Contreras abokatu **auzi-jartzailea,** berriz, ironiaz mintzatu zen: [...]. Berria - Mundua

14 ***auzi-mauzi*** *adkor*

Luze jardun nezakeen **auzi-mauzi** horretaz. Edorta Jimenez

Ongi ulertu zuen, berak nahi gabean, beste **auzi-mauzi** batean sarrarazi zutela. Patxi Zubizarreta

1904 sinatu zuten bi erresumek baketze-akordio famatu bat beren kolonien eta beste **auzi-mauzien** ahanzteko eta hori nahi ukan dute berritu orai. Herria

Magistratuaren aurrera eraman beharko zintuzketet, baina neu naizenez ingurumari honetako magistratua, ez diagu zertan **auzi-mauzi** halakoetan ibili, ezta ba? Mirentxu Larrañaga

15 ***auzi-mediku*** *(**133** agerraldi **57** artikulutan)* auzitegiko medikua.

Nazio Batuen Erakundeak tortura atzemateko **auzi medikuei** jarraitzeko esaten dien protokoloa. **Auzi-medikuaren** txostenak bat datoz Otamendiren salaketarekin. Berria - Euskal Herria

Auzi- **medikuaren** bisita jaso ondoren, galdeketari ekin zioten guardia zibilek. Berria - Euskal Herria

Eutanasia egiten ostean, medikuak ohar bat bidali behar dio herriko **auzi-medikuari** eta zergatik egin duen azaldu behar dio, idatziz. Berria - Gaiak

16 ***auzi paper*** *(corpusean ez dago; ETCn **265** agerraldi)*

35 urteak iraganik, Frantziako Ageneko lizeoan zelarik, hurbildu zen lehen aldikoz euskal gaietara, zeharka bezala, gainera, irakasle lagun batek Ageneko auzitegian Barkoxeko koblakari birigarro bati zegozkion **auzi-paperak** bazirela jakinarazi ondoan. ETC-prentsa

7) Epaileak ofizioz aginduko du, **auzi-paperekin** batera, adingabeen prozedurari buruzko espedientearen zehaztasunak eta entzunaldiko aktak jartzeko, epailearen ustez zehaztasun eta akta horiek erabakigarri izan badaitezke erabakia hartzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

7) Epaileak ofizioz aginduko du, **auzi-paperekin** batera, adingabeen prozedurari buruzko espedientearen zehaztasunak eta entzunaldiko aktak jartzeko, epailearen ustez zehaztasun eta akta horiek erabakigarri izan badaitezke erabakia hartzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Epe hori igaro ondoren, auzitegiak **auzi-paperen** gaineko ardura izaten jarraituko du, zitatua agertu ez arren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Auzitegiak galdera bat sekretua edo isilpekoa den gai bati erreferentzia egiten diola esanez lekukoak eginiko alegazioaren oinarria egiaztatu ondoren, dokumentua **auzi-paperei** gehitzea aginduko du epaileak, sekretu ofizialak zer galderari eragiten dion adierazita. ETC-zientzia, zuzenbidea

Auzi paperak beteak dira ez jabeek lur horietan egiten zituzten ohointzez eta zirtzil definiziotik ez gara urrun. ETC-literatura, saiakera

17 ***auzia eman*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Auzitegiak, **auzia ematea** agintzean, bere ustez komenigarria dena xedatuko du, fiskalak, edo, hala denean, kereila-jartzaileak gutuneria, liburuak, paperak eta gainerako konbikzio-piezaka zter ditzan, euren egoera aldatzeko arriskurik gabe. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gero bitxi saltzaileek **auzia eman** zioten horniduraril gabeko txekeak zirela eta. ETC-literatura, saiakera

Auzia eman zitzaion salak jarraitzea aholkatzen dugu", zioen gutunean. ETC-prentsa

18 ***auzia erabaki***

- Jakinarazi behar dizut epailearen esku zaudela zure **auzia erabaki** bitartean. Jose Morales

Azkenik, Aita santuak kardinal agurgarrien batzar nagusia bildu zuen Perugian, bere aretoan, **auzia erabakitzeko**. Askoren artean

Ea, **auzia erabaki** dugu behin betiko. Mirentxu Larrañaga

Gu bion artean **auzia erabaki** lezakeen artekaririk balego. Elizen arteko biblia

Eta Noemik erantzun: -Orain, Rut, zaude lasai arazoa zer-nola bukatuko den jakin arte. Boozek ez du etsiko gaur bertan **auzia erabaki** arte. Elizen arteko biblia

Hortan geldituz, **auzia erabakia** zen eta analisian urrunegi ez joanez, ez joanik, nere ontasun sakratu bilakatua zen sofrikarioa arriskatzen nituen urradurek baino jasangarria zen. Piarres Aintziart

Beraren kontuak izaten zituen batez ere hizpide: halakori zer esan zion eta halako hark zer erantzun zion, eta **auzia erabakita** uzteko berak zer esan zion. Irene Aldasoro

ihartzun handia lortzen ari da Mexikon espetxeratuta dauden sei euskal herritarren auzia Ðhaien aurkako estradizio **auzia erabaki** artean urtebete preso daramate. Berria - Euskal Herria

Joan den urtarrilaren 23an enpresak aurkeztu zuen Enpleguaren Erregulaziorako Eskaeraren baldintzak onartu zituzten **auzia erabakitzeko** ardura zuten arbitroek. Berria - Ekonomia

Akaso neurriz gorako poztasun bat ihesari buruz hitz egiterakoan, baina besterik ez, **auzia erabakita**, eta Manuel opor bidaia luze batetik itzuliko balitz bezala. Pedro Alberdi

"Hire etsaien baten **auzia erabaki** behar duanean, ez hirekiko irainari begiratu, gertatuaren egiari baizik.". Patxi Ezkiaga

Hala jokatu ohi zuten israeldarrek, **auzia erabakia** zegoela adierazteko. Patziku Perurena

19 ***auzia ipini*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Lan Magistraturan **auzia ipini** eta irabazi, eta nagusiaren ondasunen bahiketaraino iris daiteke. ETC-prentsa

Bada lehendabizi, gauza edo eskubidea gozatzeko eta erabiltzeko ahalmena, eta, bigarrenik, eskubidea besteengandik defendatzeko ahalmena (esaterako, norberaren finkan sartzea debekatzeko, auzokideari **auzia ipintzeko** ahalmena). ETC-zientzia, zuzenbidea

Behin, S herrian nekazari errentariek udalaren kontrako **auzia ipini** zuten. ETC-literatura, saiakera

20 ***auzia jarri***

Herri-agintarien jauregira joan zen, bere semeari **auzia jartzera** eta etxetik ostu zuen dirua itzularaz ziezaiola eskatzera. Jaunak **auzia jartzen** zion bere epaitegiari goragoko epaimahaiaren aurrean; eta irabazten bazuen, itzuli egiten zitzaion auzia, eta hirurogei liberako isuna ordaintzen zitzaion. Askoren artean

Inori **auzia jartzen** edo salaketa egiten bazioten, ia beti zeukan bere burua zuritzea, lekuko-kopuru jakin batekin zin eginez ez zuela egin berari egozten zitzaiona. Iñaki Iñurrieta

21 ***auzitan*** *adlag* eztabaidan, liskarrean.

Bai zera! Senidea senidearekin **auzitan** zabiltzate, eta epaile jentilen aurrean gainera! Elizen arteko biblia

Eredua bera **auzitan** dago. Berria - Ekonomia

Ez naiz nor aita Donostiaren lana **auzitan** jartzeko, baina haren itzulpen askori badario, nola esan ere, apeta-kutsu nolabaiteko bat. Anjel Lertxundi

Nik uste dut oso jende gutxik jar dezakeela **auzitan** egia hori, soilik eskuin muturreko espainolistek, edo aspaldiko ezker dibinoak, askotan saloiko faxismoan bukatu duenak. Bernardo Atxaga

Kateaturik agertzen zaizkiolarik, ordea, **auzitan** ezartzen diote ume garaiaz atxiki nahi izan duen oroimen gozoa. Xabier Montoia

Aparte utzita mitologian eta oro har letra ederretan batere aditua ez naizela, nik **auzitan** sartu nahi ez berarekin; ardura praktikorik aski bagenuen-eta bestela ere. Joxe Austin Arrieta

Zeren, noizbehinka, herritar gizabanakoei posible bazaie ere Estatuaren kontra legalki **auzitan** ibiltzea, halere, hori gertatuko da ez **auzitan** jartzen dena Estatuaren boterea bera, baizik eta lege bati buruz izan zuen borondatea denean. Esteban Antxustegi

Orduko kristautasunak euskal komunitatean izan zuen eragin handia **auzitan** zegoen. Berria - Kultura

Eskubikoek, Estatuari ezin dakiokeela leporatu, frogarik gabe, Estatua bera **auzitan** jartzen duen gertaerarik. Hasier Etxeberria

22 *auzitan aritu*

Horregatik, hau diot nik, Jaunak: Auzitan hasi nahi dut berriro zuekin eta **auzitan ariko** naiz zuen ondorengoekin ere. Elizen arteko biblia

Entzun Jaunaren hitza, israeldarrok, Jauna **auzitan ari** baita lurralde honetako jendearekin: "Ez da leialtasunik, ez maitasunik lurraldean, eta ez naute Jainkotzat aitortzen. Elizen arteko biblia

23 *auzitan hasi*

Ez naiz zurekin **auzitan hasiko**, Egia zaren horrekin; eta nik ez dut neure burua zuritu nahi, gaiztakeria berez gezurta ez dadin. Imanol Unzurrunzaga

Zorte handia izan duzu gainera, bere egoera dela eta ez baitauka detektibe ziztrin batekin **auzitan hasteko** gogorik, bestela... Migel Angel Mintegi

Burugabearekin **auzitan hasten** den zuhurrak, haserretu nahiz barre egin, ez du atsedenik izaten. Elizen arteko biblia

24 *auzitan ibili*

Nirekin **auzitan zebilela**, morroi nahiz neskameren bati eskubidea ukatu badiot,. Elizen arteko biblia

Hamar urte lehenago, argudio bera aditu zuen, Sarako erretoretza **auzitan ibili** zenean. Aingeru Epaltza

Zeren, noizbehinka, herritar gizabanakoei posible bazaie ere Estatuaren kontra legalki **auzitan ibiltzea**, halere, hori gertatuko da ez auzitan jartzen dena Estatuaren boterea bera, baizik eta lege bati buruz izan zuen borondatea denean. Esteban Antxustegi

India eta Pakistana,beren nuklear ametsekin **auzitan dabiltza** mende erdi bat huntan auzoko Cachemira lurraren gainetik. Herria

Baina kontzeptu hori, hain zuzen -hori genuen beste puntua: krisi politikoa- **auzitan zebilen** Miranderen garaian eta giroan: auzitan, ez ezkerretik bakarrik jarrita (sozialistek), eskuinetik ere bai. Joxe Azurmendi

Italiako agintariekin **auzitan ibili** da Simon bikotea azken urteotan, aurkikuntzagatik jaso beharreko sariaren inguruko desadostasunak agertu zirenetik. Berria - Gaiak

25 *auzitan ipini* *(corpusean ez dago; ETCn **81** agerraldi)*

Alegia, historia sozialaren, politikoaren eta ekonomikoaren baldintzak ulertzeko eta azaltzeko jardunean, ikusmolde juridikoa lehenesteko ideologia **auzitan ipintzen** zen. ETC-literatura, saiakera

Auzitan ipintzekoak dira, baldintza lez ordea, demokraziaren inguruko toki komunak, eta horixe da hizpide dugun ekimenak bultza dezakeena, bigarrenik. ETC-prentsa

Alabaina, XVIII. mendean sortutako arrazoi ilustratua **auzitan ipini** zuten hurrengo bi mendeetan bai Erromantizismoak bai" susmoaren filosofiak" (Marx, Freud, Nietzsche). ETC-prentsa

Azken hauetan ez da pentsio sistemaren jasangarritasuna **auzitan ipintzen**, hezkuntza edo osasun sistemena jartzen ez diren moduan. ETC-prentsa

Batean eta bestean agertutako irregulartasunek **auzitan ipini** dute Adifen kudeaketa. ETC-prentsa

Baina David Casado-Neirak **auzitan ipini** ditu indarkeria matxistari aurre egiteko estrategiak. ETC-prentsa

Baina iluntzean egin ziren manifestazioetan **auzitan ipini** zituzten goizean agintariek hitzemandakoak. ETC-prentsa

Gastu militar hauek ez ditu EBk **auzitan ipini**. ETC-prentsa

Gogorarazi diote diputazioak berak ere "**auzitan ipini** duela zerbitzuaren kalitatea". ETC-prentsa

Bizkaian gertatutakoaren ondoren, hainbatek **auzitan ipini** dituzte adingabeekin lotutako gizarte zerbitzuak. ETC-prentsa

Azterketen zorroztasuna ere **auzitan ipini** du. ETC-prentsa

ETAren sorrerak, eta 1968tik aurrera bere helburu politikoak lortzeko indarkeria erabiltzeko erabakiak, **auzitan ipini** zuten euskaldunon legitimitate demokratikoa, lehen momentutik beretik. ETC-prentsa

Oposizioak **auzitan ipini** du azpiegitura horien beharra. ETC-prentsa

Ideia honek Garraio eta Herrilan Sailaren aipamen ugari **auzitan ipintzen** ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bere itzulpena **auzitan ipinia** izan zen, behin baino gehiagotan, garai haietan aho batez onartua zen itzulpengintza eredutik aldendu egin baitzen. ETC-entziklopedia

26 *auzitan jardun*

Ez dut beti **auzitan jardungo**, ez naiz etengabe haserre egongo, neuk egindako bizidunek nire aurrean bizi-arnasa gal ez dezaten. Elizen arteko biblia

27 *auzitan jarri*

Auzitan jar daiteke erromatarrentzat ona izan ote zen Arabiako eta Indietako merkataritza egitea. Iñaki Iñurrieta

-Nor ausartuko litzateke japoniarren nagusitasuna **auzitan jartzera**? - esan nuen nik, etsituaren penaz. Joxan Elosegi

Gure ezagutzako mundua fenomeniko hutsa da, tesi funtsezko hori ez dago **auzitan jartzerik**. Askoren artean

Zientzia eta teknologia defentsa nazionalaren, hazkunde ekonomikoaren eta hiritarren bizi-baldintzen hobekuntzaren bermatzaile izatea **auzitan jartzen** da. Askoren artean

Horren ondoren, **auzitan jarri** behar du bere burua; esperimentu, kritika, errefusatzeen proba pasatu; hots, eraikitzen duen mundu-irudikapenak duen amets partea mugatu. Juan Garzia

Poeren ipuinek eragin handia izan dutela inork ez du **auzitan jartzen**; areago, literatura genero berri baten sortzailea izan zela ere esaten da, polizia eleberriarena hain justu. Koro Navarro

Tartean, beraz - eta beharrezkoak diren hainbat eta hainbat ñabardurekin -, bada defendatzen duenik enpresa horiek, beren gabezia guztiekin bada ere, garapen eredu kapitalista bera ere **auzitan jartzen** jarraitzen dutela. Iñaki Heras

Beraz, **auzitan jarri**, eztabaidatu, alternatibak bilatu eta beste modu batera kudeatzea posible da". Iñaki Heras

[...] serioa delako eta ez delako serioa aldi berean, joko bat delako, baina batik bat jolas bat, solas bat (biak gauza bera dira etorkiz), galdu-gorde handiko jolas bat, errealitatearen (errealitate eginaren, jakinaren eta beteginaren) garaipen zeharokoa eta osotarakoa etengabe **auzitan jartzen** ari dena. Iñaki Segurola

Egipton nahiz basamortuan nire aintza eta egin ditudan mirari guztiak ikusi dituzten gizon horiek eta, hala ere, ni hamar aldiz **auzitan jarri** eta desobeditu egin didatenek, ez dute ikusiko haien gurasoei agindu nien lurraldea; ez eta gutxietsi nauten guztiek ere. Jose Antonio Mujika

28 *auzitan sartu*

Hazparneko herriak lur batzu bahitu nahi zituen hortarako eta **auzitan sartu** dira lurren jabeekilan. Herria

Eta ozta-ozta ez zituzten **auzitan sartu**, ikastetxearen izen ona kolokan egon zitekeelako, jendearen marmarrak eta esamesak medio. Joan Mari Irigoien

Svetlana Alexievitx, diosku, **auzitan sartu** dute Afganistango gerratean hildako gazteetako batzuen gurasoek salaturik. Edorta Jimenez

-Auzitan sartzea Errusian? -oihu egin zuen Alcide Jolivetek. Karlos Zabala

Eta, gainera, ehun eta berrogeita hamarna errubloko gainordainarekin, Gurmailovka herrixka txikikoak izan ezik, Predistxev lurjabeak **auzitan sartu** baitu herrixka hori, eta, horrenbestez, hango arimak ezin dira ez saldu eta ez bahituran jarri. Jose Morales

Garbi zeukan, halaber, alferrik zela **auzitan sartzea**. Migel Angel Mintegi

Zein **auzitan sartu** zaituztete: Haikaren auzian ala Segiren auzian? Berria - Euskal Herria

Inorekin **auzitan sartzeko** beldur nintzen. Gotzon Garate

Judutarrek ez zuten zirkunzidatu, epaileeki **auzitan sartzeko** beldurrez; baina horregatik ez zen judu txikiagoa bere baitan. Juan Martin Elexpuru

Aparte utzita mitologian eta oro har letra ederretan batere aditua ez naizela, nik **auzitan sartu** nahi ez berarekin; ardura praktikorik aski bagenuen-eta bestela ere. Joxe Austin Arrieta

29 *auzitara* *adlag*

Santaliestrako urtegiaren proiektua eremuaren ezaugarriak kontuan hartu gabe egiteagatik, **auzitara** eraman dituzte haren bultzatzaileak. Edurne Elizondo

Krixtorenak bota zituzten elgarren kontra, orai ez liteke urrunerat ere holakorik izkiriatzen ahal **auzitara** joan gabe. Herria

Erromatar lege batek erabakitzen du itsu batek ez daukala **auzitara** jotzerik, ez dituelako magistratuen ornamentuak ikusten. Iñaki Iñurrieta

Auzitara eraman zezaketen Ernest Hemingway, eta ikaraturik zegoen gizona. Edorta Jimenez

Harry Blounten sumindura biziagotu zuen horrek, eta gidariaren nagusia bera ere atxilotu eta **auzitara** eraman nahi zuen. Karlos Zabala

Igorri didazun Danceny jaunaren txartelak argi eta garbi frogatzen du borroka hark sortua izan dela, eta nire xedea da **auzitara** eraman dezazun berehala, eta nire izenean. Jon Muñoz

Ama-alabak **auzitara** eraman zituzten. Gotzon Garate

Ez jo **auzitara** zeure zerbitzari honekin, ez baita bizidunik zure aurrean errugabe.

30 *auzitara eraman*

Harry Blounten sumindura biziagotu zuen horrek, eta gidariaren nagusia bera ere atxilotu eta **auzitara eraman** nahi zuen. Karlos Zabala

" **Auzitara eraman** behar zuten aita - esan nuen -. Bernardo Atxaga

Levinek **auzitara eraman** du emakumea. Gotzon Garate

Auzitara eramanik, honela desenkusatu omen zuen bere burua. Joxerra Garzia

Prefetak **auzitara eraman** du Euskal Herriko Laborantza Ganbera. Berria - Harian

Lur jabetzaren aldeko borroka **auzitara eramango** dute samiek. Berria - Mundua

-Auzitara eramango haut. Xabier Mendiguren Elizegi

Soinekoa kentzeko **auzitara eraman** nahi zaituenari emaiozu soingainekoa ere; norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, zoaz bi mila berarekin. Askoren artean

Handik hogeita hamahiru urtera, Ofizio Santu horrek berak **auzitara eraman** zuen Galileo Galilei. Jon Muñoz

Ez harritu gero norbaitek eskola **auzitara eramaten** badu, komunikazio-istripuen eragile izatearen akusaziopean. Joxerra Garzia

Auzitara eraman zezaketen Ernest Hemingway, eta ikaraturik zegoen gizona. Edorta Jimenez

Tolosako, Azkoitiko, Errezilgo eta Amezketako erretore integristek **auzitara eraman** zuten, bertsoen bidez egin zizkien kritika zorrotzen ondorioz. Berria - Kultura

AEB Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak **auzitara eraman** du Oklahomako eskola bat buruko zapia zeraman neska bat kanporatzeagatik. Berria - Gaiak

-Mutilari eskua berriro gainean jarri... eta **auzitara eramango** zaitut! - mehatxatu zuen. Joan Mari Irigoien

Santaliestrako urtegiaren proiektua eremuaren ezaugarriak kontuan hartu gabe egiteagatik, **auzitara eraman** dituzte haren bultzatzaileak. Edurne Elizondo

Bai argitaratzaileak bai inprimatzaileak uko egiten zioten liburua bere horretan argitaratzeari, hitz zatarrak eta aipu desegokiak zeudela eta **auzitara eraman** zitzaketela argudiaturik. Irene Aldasoro

Zer-nola **auzitara eraman** ninditean, obedientzia ukatu izanaren kargu larripean? Mirentxu Larrañaga

31 *auzitara jo*

Hala, Massachusettseko kontserbadoreek **auzitara jotzeko** mehatxua egin diote Gain Newsom alkateari. Berria - Gaiak

Haatik, oraingo honetan **auzitara jo** du. Berria - Kultura

Era berean, adierazi du PPCk Vendrellek langileak derrigortu dituen frogarik badu **auzitara joan** behar duela. Berria - Mundua

Hala ere, ahal badut, **auzitara joko** dut jokaera zikina izan delako, ezin sinetsia. Berria - Kirola

Caballitoko Langileen Batzordeak **auzitara joko** duela iragarri zuen atzo. Berria - Ekonomia

Bi gizonen artean liskarrik sortzen bada, **auzitara joko** dute, epaituak izateko: epaileek errugabea errugabe aitortuko dute eta erruduna errudun. Elizen arteko biblia

Baina Adelak, haurra izan bezain pronto bere mehatxua betetzen zuela, **auzitara jo**, eta jujeak handik urte erdira eman zuen epaia. Joan Mari Irigoien

Erromatar lege batek erabakitzen du itsu batek ez daukala **auzitara jotzerik**, ez dituelako magistratuen ornamentuak ikusten. Iñaki Iñurrieta

Krixtorenak bota zituzten elgarren kontra, orai ez liteke urrunerat ere holakorik izkiriatzen ahal **auzitara joan** gabe. Herria

32 *auzitara joan*

Krixtorenak bota zituzten elgarren kontra, orai ez liteke urrunerat ere holakorik izkiriatzen ahal **auzitara joan** gabe. Herria

"Jainkoa ez da ni bezala gizon, erantzun diezaiodan edota biok **auzitara joateko**. Elizen arteko biblia

Era berean, adierazi du PPCk Vendrellek langileak derrigortu dituen frogarik badu **auzitara joan** behar duela. Berria - Mundua

Bilbaoren ustez, berak egindako bakarra bere alderdiari botoa eman zioten herritarrak ordezkatzea izan zen; eta "botoa eman eta iritziak azaltzeagatik» **auzitara joan** behar izatea gaitzetsi zuen. Berria - Euskal Herria

33 *azken auzi*

Hobe da neure aurrean damu izatea eta mina edukitzea, maizago oroituz heriotzaz eta **azken auziaz**. Patxi Altuna

34 ***berehalako auzi*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Ezin gutxiago espero: Patrick Dallennes Baionako suprefetak azaldu duenez, "epaitegi administratibora igorriko da tarterik ahalik eta laburrenean eta zuzenenean, eta **berehalako auzi** prozedura eginen da". ETC-prentsa

Kasurik larrienetan **berehalako auziak** eginen dituztela azaldu du Patrice Michel prokuradoreak. ETC-prentsa

Hala ere, Annanek azaldu duenez, krisiaren oinarrizko arazoak urte batean konponduko dira, eta **berehalako auzi** politikoak lau astetan. ETC-prentsa

27 kasu berri aztertu zituen epaileak; hamahiru gizon epailearen kontrolpean geratu ziren, eta beste hamalauri **berehalako auzia** egin zieten -horietako bati auzibide kriminaletik-. ETC-prentsa

Berehalako auzi prozedura izanki, gaur edo beranduenik bihar goizean aztertuko du Baionako auzitegiak salaketa.>>Zezen plazaren inguruan manifestatzea eta hiri guztian gaindi eskuorriak banatzea debekatu dio Grenetek CRAC batzordeari. ETC-prentsa

Berehalako auzi prozedura hasiko duela iragarri du, erabakia baliorik gabe uzteko berehala. ETC-prentsa

35 ***dei auzi*** *ipar*

Filipe Bidart baldintzapean libratua izaiteari buruz, **dei-auzia** joanden ortziralean egin da. Herria

Pariseko ondoan, Versailles hirian, hasi da Alain Juppé gobernuburu ohiaren kontrako **dei-auzia**. **Dei auzira** joan dira denak elkarrekin Pauera. Herria

Dei auzian Filipe libre uztearen kontrako erabakirik hartuko balute epe luzerako kanpaina prestatzen ari gara. Berria - Euskal Herria

Tolosan iragan zen **dei auziko** erabakian hona zer irakurtzen dugun: "Interdit" gaztiguaz mehatxatu zuela apezpikuak Arbelbide. Xipri Arbelbide

36 ***ekialdeko auzi*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ekialdeko auzia XIX. mendean erabili izan zen termino politiko bat da. Batez ere 1821en, Greziako Independentzia Gerra hasi zenean hasi zen esamolde hau erabiltzen. ETC-entziklopedia

37 ***krimen auzi***

Argi dago kargutik kentzea merezi duten apezpikuen **krimen auziak** ez dituela Aulki Sainduak baizik epaitu behar. Piarres Xarriton

Gure Eliza Ama Sainduak halako inportantzia handitan baitauka kargutik kentzea merezi duen edozein apezpikuren **krimen auzia**. Piarres Xarriton

Heresia gaiak eta apezpikuen **krimen auzi** epaiak, haste hastetik, Erromako Aulkiari berari izan dira atxikiak. Piarres Xarriton

38 ***merkataritza-auzi***

Merkataritza-auziek oso formalitate gutxi eskatzen dituzte. Iñaki Iñurrieta

Merkataritza auziak hizpide kanpainan. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

arteko auzi (6); **aurkako auzi** (9)

auzi bat da (6); **auzi batean** (16); **auzi baten** (16); **auzi batengatik** (10); **auzi beragatik** (13); **auzi berean** (12); **auzi egunean** (23); **auzi eskaera** (7); **auzi eskea** (14); **auzi guztiak** (19); **auzi hartan** (7); **auzi hau** (64); **auzi honek** (20); **auzi honen inguruan** (12); **auzi honetan** (115); **auzi honetaz** (8); **auzi honi buruz** (11); **auzi horiek** (24); **auzi horien** (6); **auzi horrek** (19); **auzi horren inguruan** (17); **auzi horretan** (44); **auzi horretaz** (12); **auzi horri buruzko** (7); **auzi hortan** (10); **auzi hura** (16); **auzi mauzi** (8); **auzi mediku** (7); **auzi medikua** (6); **auzi medikuaren** (24); **auzi medikuari** (14); **auzi medikuei** (6); **auzi medikuek** (7); **auzi medikuen** (18); **auzi minbera** (14); **auzi nagusia** (10); **auzi nagusiak** (6); **auzi nuklearra** (23); **auzi nuklearraren** (6); **auzi nuklearraz** (8); **auzi politiko** (8); **auzi politikoa** (12); **auzi politikoak** (11); **auzi politikoetan** (7); **auzi saio** (9); **auzi saioa** (46); **auzi saioak** (15); **auzi saioan** (30); **auzi saioaren** (11); **auzi salaketa** (7); **auzitegi nazionaleko auzi** (8)

beste auzi bat (20); **beste auzi batzuk** (6); **bi auzi** (17); **buruzko auzi** (8); **da auzi hori** (8); **dago auzi** (7); **dela auzi** (8); **den auzi** (15); **dira auzi** (12); **du auzi** (26); **duela auzi**

(6); **duen auzi** (9); **dugu auzi** (6); **dute auzi** (18); **duten auzi** (6); **epaileak auzi** (7); **ere auzi** (8); **ez da auzi** (8); **hainbat auzi** (17); **irango auzi** (12); **lehen auzi** (6); **oso auzi** (6); **zen auzi** (12); **zuen auzi medikuak** (6); **zuten auzi** (8)

arteko auzia (33); **atutxa auzia** (22); **aurkako auzia** (42); **auzia aipatu** (10); **auzia amaitu** (6); **auzia argitu** (10); **auzia argitzeko** (8); **auzia artxibatu** (20); **auzia artxibatzea erabaki** (6); **auzia artxibatzeko eskatu** (12); **auzia aztertu** (9); **auzia aztertzeko** (23); **auzia aztertzen** (6); **auzia behin betiko** (9); **auzia bere** (13); **auzia berriro** (6); **auzia berriz** (10); **auzia bertan behera** (37); **auzia beste** (7); **auzia bukatu** (6); **auzia da** (34); **auzia daraman epaileak** (6); **auzia egin** (9); **auzia epaiaren zain** (7); **auzia epaitzeko** (10); **auzia epaitzen** (8); **auzia erabaki** (11); **auzia ere** (10); **auzia espainiako** (9); **auzia eta erretzea** (8); **auzia eta gainerakoak** (6); **auzia ez da** (34); **auzia ez dela** (7); **auzia ezin** (10); **auzia hasi** (15); **auzia ikertu** (8); **auzia ikertzeko** (10); **auzia ikertzen** (10); **auzia irabazi** (15); **auzia itxi** (7); **auzia ixteko eskatu** (7); **auzia izan zen** (7); **auzia izango** (8); **auzia jarri** (6); **auzia konpondu** (14); **auzia konpontzeko** (21); **auzia nazio batuen** (8); **auzia nbeko segurtasun** (6); **auzia salatzeko** (6); **auzia segurtasun kontseilura** (21); **auzia sekretupean** (6); **auzia zela** (8); **baina auzia ez** (7); **baten auzia** (8); **beharreko auzia** (7); **bere auzia** (9); **berrueta auzia** (6); **bigarren auzia** (9); **buruzko auzia** (9); **clearstream auzia** (14); **cofidis auzia** (7); **da auzia** (53); **dagoen auzia** (9); **dei auzia** (7); **den auzia** (9); **dira auzia** (7); **du auzia** (38); **duen auzia** (19); **dugu auzia** (10); **dut auzia** (7); **dute auzia** (16); **egunkaria auzia dela** (7); **egunkaria auzia ixteko** (6); **en auzia** (10); **ere auzia** (10); **estradizio auzia** (14); **euskal auzia** (13); **euskararen auzia** (6); **gal auzia** (8); **haika segi auzia** (6); **helegite auzia** (9); **inguruko auzia** (11); **jukos auzia** (7); **kontrako auzia** (27); **lehen auzia** (6); **nire auzia** (8); **orain auzia** (6); **otano auzia** (31); **pantzarren auzia** (7); **presoen auzia** (7); **programa nuklearraren auzia** (7); **ren auzia** (9); **segurtasunaren auzia** (7); **trebiñuko auzia** (7); **udalbiltza auzia** (8); **zen auzia** (31); **zuen auzia** (37); **zure auzia** (6); **zuten auzia** (21)

auziagatik preso (6); **egunkaria auziagatik** (6); **udalbiltza auziagatik** (12)

arteko auziak (11); **aurkako auziak** (12); **auziak aurrera** (15); **auziak bi** (7); **auziak ez du** (8); **du auziak** (15); **inguruko auziak** (9); **lotutako auziak** (6)

aurkako auzian (10); **auzian atxilotu** (7); **auzian auzipetua** (7); **auzian auzipetuta** (6); **auzian epaitzen ari** (6); **auzian ere** (11); **auzian esku** (6); **auzian ez** (6); **auzian inputatuta** (7); **auzian izan** (6); **buruzko auzian** (7); **da auzian** (6); **egunkaria auzian auzipetutako** (6); **egunkaria ren auzian** (7); **haika segi auzian** (15); **otano auzian** (13); **udalbiltza auzian** (8); **zuen auzian** (6)

auziarekin aurrera (6)

aurkako auziaren (7); **auziaren barruan** (7); **auziaren berri** (7); **auziaren epaia** (7); **auziaren epaiketa** (39); **auziaren epaiketan** (11); **auziaren erabakia** (7); **auziaren gainean** (8); **auziaren gaineko** (8); **auziaren harira** (8); **auziaren ikerketa** (6); **auziaren inguruan** (34); **auziaren inguruko** (27); **auziaren muina** (9); **auziaren nondik** (6); **da auziaren** (9); **du auziaren** (6); **egunkaria auziaren** (10); **haika segi auziaren** (10); **otano auziaren** (10); **zen auziaren** (7)

auziari aurre (8); **auziari begira** (8); **auziari buruz** (44); **auziari buruzko** (42); **auziari dagokion epaiketa** (6); **auziari dagokionez** (13); **auziari irtenbide** (7); **egunkaria auziari** (6); **euskal auziari** (20)

auziaz arduratzen den (7); **auziaz gain** (7); **euskal auziaz** (6); **zuen auziaz** (6)

auzien inguruan (6)

administrazioarekiko auzietako (8); **auzietako bat** (6)

administrazioarekiko auzietarako (6)

auziko auzipetuek (6); **auziko epaiketa** (8); **egunkaria auziko** (23); **otano auziko** (6)

auziren bat (15)

auzirik ez (6)

auzitan ezarri (8); **auzitan jar** (6); **auzitan jarri ditu** (9); **auzitan jarri du** (17); **auzitan jarri dute** (14); **auzitan jarri zuen** (16); **auzitan jarri zuten** (10); **auzitan jarriko** (9); **auzitan jartzea** (18); **auzitan jartzeko** (18); **auzitan sartu** (7); **bera auzitan** (6); **du auzitan jartzen** (6); **ere auzitan** (11); **ez du auzitan** (9); **zuen auzitan** (7)

auzitara eraman du (6); **auzitara eraman zuten** (8); **auzitara eramango du** (6); **auzitara eramango dute** (6); **auzitara eramatea** (9); **auzitara eramateko** (12); **auzitara jo** (25); **auzitara joko** (12); **auzitara jotzea** (6); **auzitara jotzeko** (17)

---

auzialdi *iz* epaiak eta auziak aztertu eta ebazteko, legez ezarritako mailetako bakoitza.

Aurreikusten denez, Microsoftek Luxenburgoko Lehen **Auzialdiko** gortean errekurrituko du azken erabakia. Berria - Ekonomia

Luxenburgoko Gorte Gorenaren bidez banakoen eta kolektiboen eskubideak bermatu beharko lituzke azken **auzialdi** juridikoan. Berria - Euskal Herria

Nazkatuta, Gasteizko Lehen **Auzialdiko** Hirugarren Epaitegian salaketa aurkeztu zuen. Berria - Kultura

---

auzibide *(orobat **auzipide**) iz* lege hauste bat epaitzeko epaitegian egin beharreko jardueren multzoa.

Auzibide jatorra eta zintzoa zen, erromatarren bihozberatasunaren adierazgarria. Juan Martin Elexpuru

Arretaz jarraituko dugu **auzibidearen** bilakaera ere, batez ere adierazpen askatasunaren aurkako urraketa salatzeko, eta kultura propioaren defentsa egiteko. Berria - Euskal Herria

Hori guztia **auzibideko** sekretua zen oraindik, eta, horrenbestez, ez zen iritsi Txitxikoven belarrietara, baina, hala ere, legelariak luze gabe bidali zion ohar batek aditzera eman zion eltzea borborka hasia zela. Jose Morales

Ondorioz, urtegiko bederatzi teknikari dira **auzibidean**. Edurne Elizondo

Auzibideek aldiz, zenbaitzutan laguntzen badute ere arazo koropilatsu baten trenkatzen, gehienetan bazterrak arras minkor uzten dituzte luzarako. Herria

Hori jakin eta prokuradoreak ikerketa berri bat eta **auzipide** bat ere manatu du, pozoindatua izan dela haurra sumaturik. Herria

Tourreko antolatzaileek ere neurriak hartu dituzte, eta **auzibidean** edo Polizia ikerketaren batean murgilduta dauden txirrindularien parte-hartzea ez dutela baimenduko jakinarazi zuten atzo. Berria - Kirola

Ilea moztuko dizute hitz gogorrekin eta **auzibideekin**, Jainkoak bilatu nahi zaituen arabera. Joan Mari Lekuona

Auzibidera eraman zituen galtzaileak: epaileak jatorrizko isuna eta auzi-kostuak ordaintzera kondenatu zituen, edo bestela egun batzuk kartzelan pasatzera. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auzibide bat (4); **auzibide daude zabalik** (3)

aurkako auzibidea (5); **auzibidea hasi** (3); **auzibidea hasteko** (3); **auzibidea ireki** (4); **kontrako auzibidea** (6)

aurkako auzibideak (3); **auzibideak bertan behera** (3); **kontrako auzibideak** (6)

aurkako auzibidean (3); **auzibidean jarri nahi** (3); **justiziak auzibidean jarri** (3); **lagun auzibidean jarri** (3); **legebiltzarkideak auzibidean** (3)

aurkako auzibidearen (3); **auzibidearen gastuak** (3)

---

auzibideratu *iz* auzibidera eraman. ik **auzipetu**; **auzitaratu**.

Baina esan biezat zergatik ez zituen berorrek **auzibideratu** gaizkintzok, hain izanik krimentsu eta heriotzaz zigorgarri, berorren segurtasunak, zuhurtziak, eta abarrek, larriki premiatzen zutelarik berori hartara. Juan Garzia

---

auzigabetze *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) iz* auzibide bat etetea.

"Lehen garaipen bat da; **auzigabetzea** izanen da benetako garaipena", zioen, berriz, Colette Capdevielle diputatu sozialistak. ETC-prentsa

Ni auzitegian ibili naiz 2011 arte, azkenean, **auzigabetze** batekin bukatzeko. ETC-prentsa

Kasu batean **auzigabetzea** erabaki du, froga nahikorik ez zegoelako. ETC-prentsa

---

auzigai *iz* auzi baterako gaia.

Medikuntzaren laguntzaile edo are motortzat joa, biologia ez zen **auzigai**. Juan Garzia

Honezkero, bere aurka irekitako sei **auzigaietatik** hirurengatik heriotza zigorra arriskatzen zuenez, hiltzerat kondenatua izatean edo hil arteko espetxe gaztigua jasotzean mugatzen zen bere zortea. Berria - Mundua

Muga zehatzik gabe barruan hartzen dituzte gizarte batean bizi diren bi gizakien arteko **auzigai** guztiak, egintza nahiz interesak, azken horiek korapilotsu zein aldakor izanda

ere. Andres Urrutia

---

auzigela ikus **auzi 4**.

---

auzigune *iz* auzigaia.

Kuhnen helburu horrek ikusmolde estandarren zientziaren azterketan identifikaturiko bi **auziguneen** edo testuinguruen arteko bereizketa -aurkikuntza eta justifikazioa- lausotzen zuen. Askoren artean

---

auzikide *(corpusean ez dago; ETCn **56** agerraldi) iz* beste norbaitekin batera auzi berean dagoena.

Horregatik egiptoarra hiltzera bultzaturik sentitu zen eta **auzikide** bietatik arrazoirik ez zuena gaitzestera ere bai. ETC-literatura, saiakera

Haren **auzikide** batzuek ez bezala, helegiterik ez zuen jarri. ETC-prentsa

Arratsean beste estatu- **auzikideekin** geratu da zerbait hartzeko, hiritar normalak balira bezala. ETC-prentsa

Bi gazte horiek kalean ikusteak sortzen duen pozak ezin du estali bi horiekin eta espetxean segitzen duten beste **auzikideekin** Espainiako auzitegiek Auzitegi Nazionalak lehendabizi eta Gorenak ondoren egindako injustizia. ETC-prentsa

Nolanahi ere, PZL 407. artikuluak errekonbentzioaren jasotzaile-zerrenda hedatu egiten du, lehen demandatzailea ez ezik berorren balizko **auzikideak** ere -bai nahitaezkoak, baita borondatezkoak ere- ezartzen ditu-eta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Epaiketaren objektua dela eta, eskatutako jurisdikzio-babesa subjektu batzuen aurka batera bakarrik eragingarri izan daitekeenean, horiek guztiek **auzikide** moduan demandatuak izan beharko dute, legeak beren beregi besterik xedatu ez badu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jakina, **auzikide** baten amore-emateak ez dakar berekin gainerakoena. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

auzikidetza *(corpusean ez dago; ETCn **110** agerraldi) iz* prozesu judizial batean, alderdien aniztasuna gauzatzen den egoera.

Prozesuaren ondoreetarako, gainditu egin da pertsona fisikoen eta juridikoen arteko bikoiztasuna, eta hobetu egin dira beste alde batzuk, berbarako, prozesuko oinordetza, **auzikidetzara** gehitutako parte-hartzea eta eragindako partehartzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Entzunaldi horretan, alderdiei adituta, beharrezko **auzikidetza** pasiborik ote den ebatziko du epaileak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Honen inguruan bi fenomeno juridiko aipatu behar ditugu, derrigorrezko **auzikidetza** eta kasik beharrezkoa den **auzikidetza**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Demandatuen aniztasun edo **auzikidetza** pasiboa denean, eta horiek kontuan hartuta lurraldeari buruzko eskuduntzako arauak aplikatuz gero, jurisdikzio-organo bat baino gehiago izango balira eskudunak, demandatzaileak edo auzi-jartzaileak erabaki ahal izango du horietako zeinetan jarri demanda. ETC-zientzia, zuzenbidea

Auzikidetza edo litiskonsortzio deritzon fenomeno prozesala da hau. ETC-zientzia, zuzenbidea

Demandatu aniztasuna: eztabaidaren objektua zenbait langileri aitortutako lehentasuna denean, demandanteak enpresaburuarekin batera haiek ere demandatu beharko ditu, eta horrela derrigorrezko **auzikidetza** pasibo bati bide ematen zaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala, **auzikidetzako** salbuespena ezingo da onartu absenteak ez badira auziko alderdi izan, baina ezinbestekoa da transmisio-kateko maila guztiak, baita ondasunen azken titularra ere, auzian egotea. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

auzilari *iz* auzitan sartzen den pertsona.

Sosegatzen naiz haatik pentsaturik prokuradorea trebea dela, abokatua hitz etorri handikoa, eta **auzilaria** ederra. Jon Muñoz

Baina Mexikak onartua du aintzindari ohi hori Espainiako **auzilarien** kondu herri hortarat estraditurik igortzea. Herria

Auzilaria behartuta geratzen zen lekukoaren alde borrokatzera; eta garaitzen bazuten, ez zuen auzia galtzen, baina lekukoa errefusatu egiten zen. Iñaki Iñurrieta

Ez daukat **auzilari** horrengana joan beharrik, zeu zara saltsa honetako protagonista nagusia, eta zurekin konponduko dut konpondu beharrekoa. Migel Angel Mintegi

---

auzipean **1** *adlag* auzitan, kuestionatuta.

Esaterako, Poliziarentzat susmagarri diren bi lagunen artean telefono deialdi bat egotea nahikoa da gaizkile elkarte bateko kidetzat jotzeko eta epaile batek **auzipean** jar ditzan. Berria - Mundua

Borroka galtzen zuenak ez zuen beti galtzen **auzipean** zegoen gauza. Iñaki Iñurrieta

2 *adlag* auzi prozesu baten mendean.

Eta orain **auzipean** baldin banaukate, Jainkoak gure arbasoei egin zien agintzarian itxaropena dudalako da. Elizen arteko biblia

Hildakoen piztuera espero dudalako nago **auzipean** gaur zuen aurrean. Elizen arteko biblia

Auzipean zeuden burkideak Dorronsororen gelan biltzen omen ziren arratsaldeko ordu jakin batean. Rafa Egiguren

---

auzipeko *izond* auzitan sartua dena. ik **auzi 6**.

Ez zara aske aterako, hori badakizu; besteak beste, epaitegian dei bat daukazulako zain, eta, beste kausa bat bitarteko, **auzipeko** ihesian epaituta zaudelako eta bi urteko zigorra eman dizutelako. Rafa Egiguren

---

auzipeko *izond* auzitan sartua dena. ik **auzi 6**.

Ez zara aske aterako, hori badakizu; besteak beste, epaitegian dei bat daukazulako zain, eta, beste kausa bat bitarteko, **auzipeko** ihesian epaituta zaudelako eta bi urteko zigorra eman dizutelako. Rafa Egiguren

---

auziperatu ik **auzipetu**; **auzitaratu**.

---

auzipetu, auzipe(tu), auzipetzen *(orobat **auziperatu**)* **1** du *ad* auzitara eraman.

Toledoko kale batean erregeordearen hankapean sartu eta hura aztoratu zuten zerri gaizto batzuk agindupean atxilotu, **auzipetu** eta zigortu egin zituzten. Xabier Olarra

Hala, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan Hego Amerikako diktadurek Condor Operazioan eginiko hilketengatik Pinochet **auzipera** dezaten eragozteko jarritako helegiteak ez du oraingoz erantzunik. Berria - Mundua

Urtegiaren aurkako borrokagatik **auzipetu** zuten, eta kartzelara joan behar izan zuen. Edurne Elizondo

Atxilotu, **auzipetu**, eta hortik aurrerakoa beraiek eman nahi dioten egurraren arabera etorriko da, eta hori epaile-zinpekoen baitan egongo da. Xabier Olarra

-Jo dezagun **auzipetu** egiten zaituela. Lopez de Arana

Baietz, esan zidan Urrutikoetxeak, egindako adierazpen eta testigantzetatik, frogatzeko modukoa zela Oxford Klubean gizon haiek Jaionerekin egon izana, baina Polloeko emakume zatitua nor zen ziurtatu artean, alfer-alferrik genbiltzala gizon haiek **auzipetzeko** ahaleginetan. Hasier Etxeberria

2 (izen gisa)

Auziperatua izan hamabost minutuz eta presondegira botatu fusilatua izaiteko! Menane Oxandabaratz

Auzipetuaren izena? Ozta-ozta gogoratzen naiz oihartzun izugarri batez, mespretxuzko zaplada batez bezala, eta hori bera ere ahaztu nahi dut biharko, oroimenean berak bizitzatik deportatu zituenenak baizik ez gordetzeko. Josu Zabaleta

Auzipetu nagusiak, gainera, berehala aldatu omen zituzten beste norabait. Rafa Egiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atxilotu eta auzipetu (6); **auzian auzipetu** (4); **auzipetu batek** (3); **auzipetu behar** (3); **auzipetu ditu garzonek** (3); **auzipetu du** (9); **auzipetu dute** (13); **auzipetu edo ez** (3); **auzipetu egin** (13); **auzipetu gisa** (4); **auzipetu guztiak** (5); **auzipetu guztiek** (4); **auzipetu guztien izenean** (4); **auzipetu zituzten** (9); **auzipetu zuten** (27); **da auzipetu** (3); **dute auzipetu** (3); **egotzita auzipetu** (3); **ere auzipetu** (9); **gisa auzipetu zuen** (3); **hainbat auzipetu** (3); **inor auzipetu** (3); **izateagatik auzipetu** (4); **lagun auzipetu ditu** (7); **lagun auzipetu dituzte** (3); **lagun auzipetu zituen** (4); **ohia auzipetu** (4); **oraindik auzipetu** (3); **pertsona auzipetu dituzte** (3); **zazpi auzipetu** (3); **zazpi lagun auzipetu** (3); **zortzi lagun auzipetu** (3)

atalean dago auzipetua (4); **auzipetua dago** (5); **egunkaria auzian auzipetua** (3); **ere auzipetua** (3)

auzian auzipetuak (3); **auziko auzipetuak** (4); **auzipetuak beste** (4); **auzipetuak dira** (3); **auzipetuak errudun** (3); **auzipetuak ez** (5); **auzipetuak izan** (5); **auzipetuak kezkatuta** (4); **dira auzipetuak** (3); **egunkaria ko auzipetuak** (3); **zazpi auzipetuak** (6)

auziko auzipetuei (3); **auzipetuei babes ematera** (5); **auzipetuei babesa** (8); **auzipetuei eginiko** (3); **auzipetuei elkartasuna** (7); **ko auzipetuei** (3)

auziko auzipetuek (6); **auzipetuek ez dute** (3); **bi auzipetuek** (3); **dute auzipetuek** (16); **egunkaria ko auzipetuek** (3); **zazpi auzipetuek** (4); **zuten auzipetuek** (8)

auzipetuen abokatuek defentsa (3); **auzipetuen artean** (7); **auzipetuen aurkako epaiketa** (3); **auzipetuen defentsa** (4); **auzipetuen errugabetasun presuntzioa** (4); **auzipetuen hitzetan** (3); **auzipetuen izenean** (8); **auzipetuen ustez** (3); **zazpi auzipetuen abokatuek** (3)

auzipetuetako batzuk (3)

bi auzipetuk (3)

auzipetuko ditu (4); **auzipetuko du** (4)

auzipetuta dago (8); **auzipetuta dagoen** (6); **auzipetuta daude** (5); **auzipetuta dauden zazpi** (4); **auzipetuta daudenen** (5); **auzipetuta jarraitzen duten** (3); **auzipetuta zegoen** (4); **batean auzipetuta** (4); **egunkaria auzian auzipetuta** (3); **ekin atalean auzipetuta** (4); **ere auzipetuta** (3); **lagun daude auzipetuta** (12); **sumarioan auzipetuta dauden** (4); **sumarioetan auzipetuta** (3)

auzipetutako beste (4); **auzipetutako kideak** (5); **auzipetutako lagunek** (3); **egunkaria auzian auzipetutako** (6)

auzipetzeko bidea (3); **auzipetzeko eskatu du** (3); **auzipetzeko eskatu zioten** (3); **auzipetzeko eskatu zuen** (3); **auzipetzeko eskatzen** (3); **diktadorea auzipetzeko** (4); **erantzuleak auzipetzeko** (3)

auzipetzen badute (3)

---

auzipetze **1** *iz* auzitara eramatea.

Preso administratiboak ziren gehienak, hots, inolako **auzipetzerik** gabe kartzelaratu zituztenak. Iñigo Aranbarri

Washingtonek ez du lortu Greenpeace **auzipetzea** . Berria - Gaiak

Eta, gauzak erabat korapilatzeko, erants itzazu auziarekin inolako loturarik ez duten gertakari batzuk eta beste hainbat lagun **auzipetzea** ekar dezaketen afera denetarikoak. Jose Morales

Esan gabe doa, Botinek **auzipetzeari** jaramonik ez dio egingo. Berria - Ekonomia

Espainian gazteleraz argitaratuek bi albiste nagusi zituzten nabarmentzeko, hots, Otegiren **auzipetzea** eta Madrilgo leherketa. Iñigo Aranbarri

2 *auzipetze auto*

Bestalde, badaezpadako neurrien berri ematen duen idazkia da atzo goizaldean kaleratutakoa; ez da **auzipetze autoa** . Berria - Harian

Iragan urtarrilaren 24an jaso zuten Marcosek eta Basabek **auzipetze autoa** . Berria - Kultura

Espainiako Auzitegi Nazionaleko iturriek berri agentziei esandakoaren arabera, inputazio berri horien osteko berehalako urratsa, **auzipetze autoa** kaleratzea izango da. Berria - Euskal Herria

Bihar, goizeko 10: 00etan egon behar dute Egunkaria auzian auzipetutako lagunek Espainiako Auzitegi Nazionalean, **auzipetze autoa** jasotzeko. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aurkako auzipetze (3); **auzipetze autoak** (6); **auzipetze autoan** (7); **auzipetze autoaren** (5); **auzipetze autoari** (5); **auzipetze kriminaleko legea** (3); **auzitegi nazionalean auzipetze** (3); **nazionalean auzipetze autoa** (3); **zuen auzipetze** (4)

aurkako auzipetzea (5); **auzipetzea erabaki zuen** (10); **auzipetzea ez** (3); **ez auzipetzea erabaki** (3); **lagun auzipetzea** (4); **leporatu eta auzipetzea** (4)

auzipetzeak berresteko eskatu (3); **auzipetzeak berretsi** (6); **auzipetzeak berretsita** (3); **zazpi auzipetzeak berresteko** (3)

auzipetzeekin zer egin (3)

---

auzipide ik **auzibide**.

---

auzitaratu, auzitara(tu), auzitaratzen **1** du/da *ad* zerbait edo norbait auzibidean ipini. ik **auzi 8**; **auzipetu**.

Bainan hara nun, ondar azak ontzeko, beste zurgin bat ere **auzitaratua** dela, berriki hor gaindi kokatua den David Arrossa gaztea. Herria

Saruguet uxerra eta hargin beltzak **auzitaratu** zituen, gordeka beren kongregazioa bersortu zutela akusapean. Xipri Arbelbide

2 (izenondo gisa)

Pobre-itxuran: abokatutarako dirurik ez duen **auzitaratu** bati kontsiderazioz bere auzia galtzeko bide ematen dion metodoa. Xabier Olarra

---

auzitegi **1** *iz* lurralde jakin bateko auziak erabakitzen dituen epaimahaia; epaimahai hori dagoen eraikina.

Bere ama, Nekane, pozik zegoen orain urte erdi, **auzitegira**, paper batzuk behar zituela eta etorri zitzaidanean. Gotzon Garate

Eta zein kalifikazio merezi izan zuen nire txostenak **Auzitegi** Gorenean? Karlos Linazasoro

Giro beltz hartan, argi gorria zuten artean lanparek, eta ibaiaren beste aldean Lau **Auzitegien** jauregia ikusten zen, mehatxari, zeru astunaren kontra. Irene Aldasoro

Eiki larrua salbatu zuen, baina ez luzerako, ezen handik sei hilabetera, Baionako **auzitegiak** Etxarri legezko likidazio bidean jarri zuen. Itxaro Borda

Nagusi hau, bada, New Yorkeko estatuan **Auzitegi** Gorenerako Arduradun izendatu berri zuten eta, hartara lana ugaldu zitzaionez, iragarki bat paratu zuen prentsan, lehen zeudenez gain beste enplegatu, beste kopiagile bat behar zuela eta. Pablo Sastre

Auzi hau laburtzeko, aipatu besterik ez ditugu egingo galdeketan mintzatu zen **auzitegiko** sendagilearen xehetasun higuingarriak. Koro Navarro

Borta guziak bortxatzen zituen, prefeturakoak, apezpikutegikoak, polizategikoak, **auzitegikoak**, herriko-etxekoak, bere mezuaren entzunarazteko eta behar zituen bultzaden ardiesteko. Michel Oronoz

Gerora, **auzitegian** epaitu eta zazpi urteko espetxe-zigorra leporatu zioten Teo Goñiri. Josetxo Azkona

Gizon ezkondua emakume ezkongabearekin erlazionatzen bada, haren emazteak sala dezake **auzitegian** , eta irtenbidea bigarren emakumea bigarren emaztetzat hartzea izan daiteke. Jon Arretxe

Hirugarrenean, ekologistek ez lukete onartuko ETAk muturra sartzea, protestak oso bitxiak izan dira eta **auzitegiek** hiritarrei eskaintzen dizkien aukera guztiez baliatu izan dira. Pello Salaburu

Baina nik dakidala, **auzitegiak** nire ardura aitari esleitu zion eta beraz erabaki horri lotu behar natzaio. Urtzi Urrutikoetxea

Ezusteko tximist-eraso batez berehalaxe azpiratua izan zen, ordea, athenaitarren gerrako **auzitegian** gizaseme larri denak heriotzara galduak izanik, haurrak eta emakumeak esklabotzara. Joxe Azurmendi

2 *iz* (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa).

Hilketaren argibideak amaitzean, **auzitegi** -medikuaren zain zeudela erantsi zuen Joaquinek. Aritz Gorrotxategi

Eta bestela izan balitz ere, ez zatekeen sartuko, gisa horretako hika-miketan onuradun bakarrak legegizonak, **auzitegi** -prokuradoreak eta gainerako kideak baitira. Migel Angel Mintegi

Borreroak ez du gogoko **auzitegi** medikuaren gorpuekiko hoztasuna, ez eta epailearen itxurazko axolagabekeria ere. Karlos Linazasoro

-Auzitegi -medikuarekin hitz egin dut. Fernando Morillo

3 *adingabeen auzitegi* *(corpusean ez dago; ETCn **42** agerraldi)*

Erretiratzeko adina, orokorrean, 70 urte da (Lord Chancellor-aren onespenarekin 72), 65 **adingabeen auzitegietan** aritzen direnentzako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hain zuzen, Botere Judizialaren Lege Organikoa onetsi ondoren - LOBJ - (1985) **Adingabeen Auzitegi** Babesleak desagertu ziren eta, horren ordez, organo jurisdikziodun berriak sortu, Adingabeen Epaitegiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tratu txarrak jasan ditzakeen haurrengana bereziki zuzenduta egonda ere, **Adingabeen Auzitegitik** pasatu diren gazteak ere aintzat hartzen ditu. ETC-prentsa

Hala ere, Donostiako **Adingabeen Auzitegiak** zigor hori bertan behera laga zuen. ETC-prentsa

Donostiako **Adingabeen Auzitegiko** epaileak auzian izan duen jarrera defendatu du elkarrizketa batean. ETC-prentsa

Azterketa egin zioten **Adingabeen Auzitegiko** fiskalak eskatuta, eta gazteari adina 14 urtera aldatu zioten, azterketan oinarrituta. ETC-prentsa

Hamar urteko zigorra jarri zion **adingabeen auzitegiak** , eta helegitea jarri zuen haren abokatu Joanes Labaienek. ETC-prentsa

Auzi saioa zuten atzo Gipuzkoako **Adingabeen Auzitegian** , auziko aldeen ikuspegia azaltzeko. ETC-prentsa

Berezko araudia izateaz gain, **Adingabeen Auzitegia** dago Espainiko Estatuan eta horrek, zigor prozeduraren ikuspuntutik, ezberdintasunak ditu. ETC-entziklopedia

Nerabe bati etxean gizon helduak hartzea leporatuko dio bizilagun batek. **Adingabeen auzitegira** eramango dute, eta han epaile atsegin eta ulerkorra aurkituko du buruan. ETC-entziklopedia

4 *Adingabeen Babes Auzitegi* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Haurren etorkizuna **Adingabeen Babes Auzitegiak** erabaki beharko duela esan zuen alkateak. ETC-prentsa

5 *auzitegi barruti* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Emakumeak aurretik ere beste salaketa bat jarri zuen komisarian bikotekidearen kontra, baina gero **auzitegi barrutian** atzera egin zuen, eta azkenean, salaketa kendu zuen. ETC-prentsa

NA-5229-S matrikuladun autoa errepidetik atera zen, NA-7.400 errepideko 0,500. kilometroan, Antzineko udal barrutian (Lizarrako **auzitegi-barrutia**). ETC-prentsa

Batzarrak eta elkarretaratzeak egingo dituzte **auzitegi barrutietan** . ETC-prentsa

Eusko Alkartasunak (EA) legez besteko proposamena aurkeztuko du Eusko Legebiltzarrean, Justizia Administrazioko lanpostuetan euskara jakitea betebeharra izan dadila eskatzeko," betiere **auzitegi-barruti** bakoitzeko egoera soziolinguistikoaren arabera". ETC-prentsa

Epaitegi berria Iruñeko **auzitegi barrutiari** dagokio. ETC-prentsa

Baina lurralde guztietan **auzitegi barrutiko** kartzelak ere bazeuden, Iruñekoa, Bilbokoa eta Donostiakoa lez, presondegien sare zabal eta sendoa osatuz. ETC-prentsa

PKLren 303. artikuluak dioenaren arabera, atariko prozedura gauzatzeko eskumen arrunta instrukzio-epaileari dagokio, bere **auzitegi-barrutian** edo mugapenaren barruan egindako delituetan PKLren 303 I, 14.2 eta 87 a) art.. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *Auzitegi Goren*

1997-07-14: Espainiako **Auzitegi Gorenak** naturguneen babes eremua urez betetzeko debekua plazaratzen du, behin betiko sententzia sendo batean. Edurne Elizondo

Ilargitarra: Orduan, zuen Kongresu horrek lege bat onartu duenean, zuzenean bidaltzen da **Auzitegi Gorenera** ea konstitucionala den berehala jakiteko? Xabier Olarra

Madril eta Bilboko **Auzitegi Gorenek** UEMA Udal Euskaldunen Mankomunitatearen kontrako erabakiak argitaratu dituzte. Hasier Etxeberria

2002an Batasunaren jardueren etetea agindu zuen Baltasar Garzon epaileak, 2003an Espainiako **Auzitegi Gorenak** alderdia legez kanpo utzi aurretik. Berria - Euskal Herria

Salaberriari ezarritako zigorra baliogabetu du **Auzitegi Gorenak** . Berria - Euskal Herria

Montmartren liburu-saltzaile izateak ez du antzik, noski, Tolosako legebiltzarreko kide, **Auzitegi Goreneko** kargudun, eta Ediktuen Ganberako komisario izatearen aldean. Jon Muñoz

Eta zein kalifikazio merezi izan zuen nire txostenak **Auzitegi Gorenean** ? Karlos Linazasoro

Epaileak adierazi zuen behar adina froga zituela ni **auzitegi gorenaren** aurrera eramanarazteko eta hiru mila dolarreko fiantza ezarri zuen. Fernando Rey

7 *Auzitegi Konstituzional*

Espainiako Gobernuak **Auzitegi Konstituzionalean** inpugnatu zuen, eta Arabako Diputazioak eta Nafarroako Gobernuak EAEko Auzitegi Nagusian egin zuten. Berria - Euskal Herria

EAEko legea Espainiakoaren aurkakoa dela esan du **Auzitegi Konstituzionalak** . Berria - Euskal Herria

2000-03-14: Espainiako **Auzitegi Konstituzionalak** ontzat ematen du Nafarroako Gobernuak Naturguneen inguruan egindako lege berria. Edurne Elizondo

Espainiako **Auzitegi Konstituzionalak** Aukera Guztiak plataforma baliogabe berrestea erabaki zuenean hartu zituen neurriok lehenago. Iñigo Aranbarri

8 *auzitegi-mediku* *(**28** agerraldi, **5** liburu eta **4** artikulutan)* auzitegiko medikua.

Auzitegi-medikuaren arabera egia jakiteko ehun-lagin bat aztertzea beste modurik ez zegoelako. Ramon Saizarbitoria

Defentsako abokatuaren arabera, **auzitegi-medikuen** ondorioek haien alde jarri dute kasua. Berria - Harian

Altxatzeko esan eta begiak estali zizkidaten, **auzitegi medikuarengana** eramateko. Berria - Euskal Herria

Borreroak ez du gogoko **auzitegi medikuaren** gorpuekiko hoztasuna, ez eta epailearen itxurazko axolagabekeria ere. Karlos Linazasoro

9 *auzitegi medikuntza*

Eusko Jaurlaritzaren ardurako organoa da, hain zuzen, **Auzitegi Medikuntzako** Euskal Erakundea, eta bertako medikuak ari dira Batasuneko bozeramailearen jarraipen medikoa egiten. Berria - Euskal Herria

Arkautin izango dira, besteak beste, Guillermo Portero Bilboko **Auzitegi-Medikuntza** Institutuaren zuzendaria; Igone Zubizarreta indarkeria edo eraso sexualak jasaten dituzten emakumeen arreta psikologikoan aditua; Monica Ibañez Deustuko Unibertsitateko emakumeen kontrako indarkeriaren masterraren idazkaria; Ander Bergara Emakunderen aholkularia; eta Juana Balmaseda Bizkaiko Abokatuen Elkargoko dekanordea. Berria - Euskal Herria

10 *Auzitegi Nagusi*

Sozialista Abertzaleak taldeko Josu Urrutikoetxeari legebiltzarkidearen funtzioak kentzeko agindua eman du Euskal Autonomia Erkidegoko **Auzitegi Nagusiak** . Berria - Euskal Herria

Uxerrek soro, baratze edo mahastiak desegiten zituzten intsektuak epaimahai zibilen aurrera deitzen zituzten eta lekukotasun, argudio eta zigorraren ondoren in contumaciam jarraitzen bazuten, arazoa elizaren **auzitegi nagusiaren** eskuetan jartzen zen, eta hark solemnitatez eskomikatu eta anatematizatzen zituen. Xabier Olarra

1997-06-30: Madrilgo Justizia **Auzitegi Nagusiak** bertan behera uzten du Itoizko urtegiak ingurumenean eraginen lukeen kalteari buruzko txostena. Edurne Elizondo

Jainkoak daki **Auzitegi Nagusiraino** ailegaraziko dugula. Fernando Rey

11 *Auzitegi Nazional*

Inkomunikazioa **Auzitegi Nazionalak** etengabe ezartzen duen neurria da. Berria - Euskal Herria

Espainiako **Auzitegi Nazionala** eskubide urraketen iturri etengabea dela azaldu zuen Elosua abokatuak Martin Ugalde Foroan. Berria - Euskal Herria

Auzia bertan behera uztea edo auzipetuak epaitzea erabakiko da bihar **Auzitegi Nazionalean**. Berria - Euskal Herria

Hain justu ere, Espainiako Fiskaltza Nagusiari, **Auzitegi Nazionaleko** Fiskaltzari eta Presidentetzari, Zigor Aretoko Lehen Sekzioari eta Instrukzio Auzitegi Zentralari eskatu dio Uria aske gera dadin "beharrezko diren neurriak» hartzeko. Berria - Euskal Herria

Datozen egunotan kartzela utziko du Iñaki Uria Egunkaria SAko kontseilari ordezkariak, 17 hilabetetik gora preso egin ondoren, Espainiako **Auzitegi Nazionalak** eskatutako 450.000 euroen abalak ahalik eta azkarren aurkeztekotan baita familia. Berria - Euskal Herria

Ezin dugu ahaztu kableak moztu genituenean obren errimtoa zoroa zela; **Auzitegi Nazionalak** eta Espainiako Auzitegi Gorenak proiektuaren kontrako sententziak eman zituzten, eta hori ikusita, obren errimtoa azkartzea erabaki zuten urtegiko arduradunek. Edurne Elizondo

Zehatz esan dezaket noiz eta zergatik piztu zitzaidan esan behar dudana kontatzeko gogo bortitz hau, noiz eta zer dela eta ernetu zitzaidan eraman ezin dudan azkura izugarri honen harra: duela hilabete eta erdi gertatu zen, Madrilgo **Auzitegi Nazionalean**. Hasier Etxeberria

12 *auzitegi zientzia* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Haren zeregina Justizia Administrazioa laguntzea eta irizpide zientifikoen batasuna eta analisi-peritutzaren kalitatea hobetzea da, eta, orobat, **auzitegi-zientziak** garatzen laguntzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionala organo tekniko bat da, Justizia Ministerioari atxikia, zeinaren zeregina baita Justizia Administrazioa laguntzea eta irizpide zientifikoen batasuna eta analisi-peritutzaren kalitatea hobetzea, eta, orobat, **auzitegi-zientziak** garatzen laguntzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 *auzitegiko genetika* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Auzitegiko genetika ez da bat-batean agertu, auzitegiko hemogenetikatik eboluzionatu baitu; XX. mende hasieran sortzen da. ETC-entziklopedia

14 *auzitegiko hizkuntzalaritza* *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)*

Auzitegiko hizkuntzalaritzaren sorkuntza 1968. urtean kokatu daiteke, Jan Svartvik-ek bere liburuaren izenburuan termino hori aipatu zuenean. Ordutik gaur egun arte gauzak asko aldatu dira eta gaur egun **auzitegiko hizkuntzalaritzak** pisu handia hartu du eskubidearen munduan. ETC-entziklopedia

15 *auzitegiko mediku*

Hagako **auzitegiko medikuek** bi patologo serbiarrekin batera egin zuten azterketa medikua eta hildakoak bihotzean bi zauri zituela jakinarazi zuten. Berria - Mundua

Eta **auzitegiko medikuarena**, noski, gorpuan aurkituriko haziak erabat ziurta bailezake Ostolazaren kontakizun harrigarria. Migel Angel Mintegi

Hilketa, ordea, gauerdia baino lehenago kokatzen zuen **auzitegiko medikuak**, eta ordurako ilehoriarekin zebilen. Migel Angel Mintegi

Auzitegiko medikuak bere lana bete arte ez da komunikatu ofizialik izango. Migel Angel Mintegi

Auzitegiko medikuen eskuetan dago dagoeneko, tiro batek jugularra zulatuta. Migel Angel Mintegi

Auzitegiko medikuaren txostenak ez zuen zalantza-biderik uzten: seiak era berberean izan ziren asasinatuak, errittual ongi taxutu bati jarraikiz: lehenik, orkatilak; hurrena, belaunak; gero, gerria eta saihetsak; azkenik, lepo-hezurra. Karlos Linazasoro

Eta bukatzeko, **auzitegiko medikua** bera harritzerainoko abilezia makabroz, bi begiak atera zizkieten beren zuloetatik, koilara txiki bat erabiliz, eta gero, erauzitako begiak ahoan sartu zizkieten. Karlos Linazasoro

Gorputzeko beste hezur batzuen kasuan, adin ertainean batzen dira epifisiak; horrek ematen dio askotan **auzitegiko medikuari** biktima gazte baten adina zehaztasun handi samarrez kalkulatzeko bidea. Irene Aldasoro

Epaileak, halaber, irakaslearen lekukoen hitzak, eta **auzitegiko medikuak** lesioei buruz egin zuen txostena hartu ditu kontuan. Berria - Euskal Herria

Jokin Zeberioren gurasoentzat, umiliazioen eta ustezko erasoen zehaztasun horietako bat da **auzitegiko medikuek** hildako gaztearen gorpuari egindako azterketa. Berria - Harian

16 *auzitegiko medikuntza*

-Pentsatzen dut: **Auzitegiko Medikuntza** Institutura. Fernando Morillo

Justizia Sailak, honenbestez, errespetua eskatu zion epaileari " **Auzitegiko Medikuntzako** Euskal Erakundeko kideen lan profesional eta teknikoarekiko». Berria - Euskal Herria

Auzitegiko Medikuntzako Innsbruckeko adituak aritu dira lan horretan, eta, adierazi dutenez, emaitzek erabat argitzen dute Mozarteum fundazioak duen garezurra Mozartena den ala ez. Berria - Kultura

17 *dei auzitegi* *ipar*

Parisko **Dei Auzitegiak** Iñaki Esparza estraditatzearen aldeko ebazpena kaleratu zuen atzo. Berria - Euskal Herria

Paueko **Dei Auzitegiaren** instrukzio ganberak ekainaren lehenean emanen du Amaia Rekarte, Yves Matxikote eta Haritza Galarraga Espainiaratzeko euroaginduari buruzko erabakiaren berri. Berria - Euskal Herria

Paueko **dei auzitegiak** berretsi egin zuen atzo Baionako auzitegiak bi demoren aurka hartu ebazpena. Berria - Euskal Herria

Erne egoitea noiz duen **dei-auzitegiak** aztertuko Filipe-k hel-arazi errekurtsoa, oraiko ustez urrian. Herria

Versailles hiriko **dei-auzitegiak** trenkatu du Alain Juppé gobernuburu ohiaren kontrako auzia. Herria

Agorreka Donazaharrekoak gaitzeko izuna izan baitzuen prediku batengatik (Baionako 3.000 liberakoa, 500etara jautsi zuen Pabeko **dei auzitegiak**). Xipri Arbelbide

Parisko **Dei Auzitegiak** Iñaki Esparza estraditatzearen aldeko ebazpena kaleratu zuen atzo. Berria - Euskal Herria

18 *goi auzitegi*

Londresko **Goi** Auzitegian Ingalaterrako Bankuaren aurkako epaiketa hasi zen atzo. Fernando Ruiz Piñeiro epailea izendatu zuten EAEko **Goi** Auzitegiko buru joan den otsailean. Berria - Ekonomia

Norvegiako **Goi** Auzitegiak ebatzi zuen [...]. Lille hiriko **Goi** Auzitegiak Cofidiseko txirrindulariaren helegitea ezetsi du. Berria - Ekonomia

19 *justizia auzitegi*

1997-06-30: Madrilgo **Justizia Auzitegi** Nagusiak bertan behera uzten du Itoizko urtegiak ingurumenean eraginen lukeen kalteari buruzko txostena. Edurne Elizondo

Bada ohitura hau laburbiltzen duen esaera bat **justizia auzitegi** guztietan: Bere burua konfiskatzen duenak, bere ondasunak ere konfiskatzen ditu. Juan Martin Elexpuru

Bosniaren salaketarekin, estatuen arteko lehen prozesua abiatu du Nazioarteko **Justizia Auzitegiak**. Berria - Mundua

Carlos Urkijok eskatuta Estatuaren abokatuak jarritako bi helegite aintzat hartu ditu EAEko **Justizia Auzitegi** Nagusiak. Berria - Euskal Herria

20 *Justizia Auzitegi Nagusi*

Espainiako Auzitegi Gorenak atzera bota du 18 /98 sumarioaren epaiketa EAEko **Justizia Auzitegi Nagusian** egiteko eskaera. Berria - Euskal Herria

Bestalde, EAEko **Justizia Auzitegi Nagusiko** presidente berria elkarrizketaren aldekoa eta "tolerantea» izatea espero duela esan zuen EB-IUko koordinatzaile nagusi Javier Madrazok. Berria - Euskal Herria

1997-06-30: Madrilgo **Justizia Auzitegi Nagusiak** bertan behera uzten du Itoizko urtegiak ingurumenean eraginen lukeen kalteari buruzko txostena. Edurne Elizondo

21 *Kontu Auzitegi*

Puntu hori salatu zuen Robert Dagerrezarrek eta denboraren buruan **Kontu auzitegiak** kondenatu du Mugerre 230 000 liberako diru laguntzaren itzultzera gobernuari. Herria

Udalbideren laguntzetan hutsak sumatu ditu **Kontu Auzitegiak**. Berria - Euskal Herria

Kontu Auzitegiak gaur ofizialki jakinaraziko duenez, Gizarte Segurantzak 11,5 miliar euro galdu zituen. Berria - Ekonomia

22 *kontuen auzitegi*

Kanpoko erakunde batek ikuskatu ditu lanak, bai eta **Kontuen Auzitegiak** ere; ez da legez kanpoko deus aurkitu. Berria - Euskal Herria

23 *krimen auzitegi*

Loialistak zigorra ez betetzea **«krimen auzitegien** kontroletik erabat at» dagoela esan zuen atzo epaileak. Berria - Mundua

Parisko **Krimen Auzitegiak** ARB Bretainiako Armada Iraultzaileak inoiz bere gain hartu ez zuen hilketa batengatik auzipetu zituen erakunde horretakotzat jotzen zituen 11 militante independentista.

Yann Choucq abokatuak 1970ean indarrean zegoen Estatuko Segurtasun Gortearekin alderatu zuen **Krimen Auzitegi** Berezia eta Giza Eskubideen Europako Konbentzioak legez kanpokotzat duela gogorarazi zuen. Berria - Mundua

24 *lan auzitegi*

Gaur egun SAGAkoen trebatzaile lanak betetzen dituen Patrice Caule erakasleak 30 000 euroz goiti kalte ordain eskuratu zituen **lan auzitegian** 2003-an ASG-ren gandik. Herria

Lan auzitegiak kontsideratu du ez zela arrazoin seriosik 18 urte honetan bere lana egiten zuen langilearen kanpo emaiteko. Herria

Nafarroako Enpresarien Patronalak (CEN) bi ordezkari izanen ditu, eta UGT, CCOO sindikatuek, **Lan Auzitegiak**, Anfacek, Nafarroako Kooperatiben Elkarteak (AN Coop), eta Industriaren Nafarrroako Elkarteak (AIN) ordezkari bana edukiko dute. Berria - Ekonomia

25 *merkataritza-auzitegi*

Baionako Safam enpresak ordainketa etendura aurkeztuko du bihar arratsaldean, **Merkataritza Auzitegian**. Berria - Ekonomia

Maiatzaren 3an hitzordua daukate **merkataritza auzitegian**, bide erdiko balorapen baterako. Berria - Ekonomia

Konkurtso honekin enpresak bere hartzekodunak zeintzuk diren azaldu behar dio auzitegiari, kasu honetan Bilboko **Merkataritza Auzitegiari**. Berria - Kirola

Paueko **Merkataritza Auzitegiak** sei hilabeteko epea eman dio enpresako zuzendaritzari finantza egoera berrorekatzeko, jarduera suspertzeko eta orain geratzen diren 34 lanpostuak salbatzeko. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aebetako auzitegi (14); **alemaniako auzitegi** (6); **atzo auzitegi gorenak** (6); **atzo eaeko auzitegi** (10); **atzo espainiako auzitegi** (47); **aurka espainiako auzitegi** (9); **autonomia erkidegoko auzitegi** (6)

auzitegi administratiboak (6); **auzitegi aintzinean** (6); **auzitegi atarian** (7); **auzitegi aurrean** (11); **auzitegi bat** (11); **auzitegi batean** (18); **auzitegi baten** (12); **auzitegi berezi** (7); **auzitegi bereziak** (16); **auzitegi berezian** (12); **auzitegi bereziaren** (7); **auzitegi federal** (6); **auzitegi gorena** (36); **auzitegi gorenak arrazoia** (7); **auzitegi gorenak atzera** (13); **auzitegi gorenak atzo** (8); **auzitegi gorenak berretsi** (11); **auzitegi gorenak ebatzi** (6); **auzitegi gorenak erabaki** (7); **auzitegi gorenak ez** (8); **auzitegi gorenak hartutako** (9); **auzitegi gorenaren aurrean** (11); **auzitegi gorenaren epaia** (6); **auzitegi gorenaren erabakia** (10); **auzitegi gorenari** (20); **auzitegi gorenean helegitea** (10); **auzitegi goreneko epaile** (6); **auzitegi goreneko fiskalek** (8); **auzitegi goreneko presidente** (11); **auzitegi goreneko sala** (14); **auzitegi goreneko zigor** (6); **auzitegi gorenera jo** (9); **auzitegi gorenera joko** (11); **auzitegi honek** (6); **auzitegi horrek** (17); **auzitegi horren** (14); **auzitegi konstitucionala** (17); **auzitegi konstitucionalak ez** (6); **auzitegi konstitucionalak hartutako** (6); **auzitegi konstitucionalaren ebazpena** (6); **auzitegi konstitucionalaren erabakia** (12); **auzitegi konstitucionalean babes** (6); **auzitegi konstitucionalean helegitea** (9); **auzitegi konstitucionaleko presidente** (6); **auzitegi konstitucionalera** (15); **auzitegi militar batek** (10); **auzitegi nagusia** (15); **auzitegi nagusiak bertan** (9); **auzitegi nagusiak ez** (7); **auzitegi nagusian deklaratu** (10); **auzitegi nagusiko fiskalak** (7); **auzitegi nagusiko lehendakari** (12); **auzitegi nagusiko presidente** (16); **auzitegi nagusiko presidentea** (7); **auzitegi nagusiko zigor** (6); **auzitegi nazionalak bi** (6); **auzitegi nazionalak ez** (9); **auzitegi nazionalaren aginduz** (9); **auzitegi nazionalaren esku** (16); **auzitegi nazionalean aurkeztu** (7); **auzitegi nazionalean deklaratu** (22); **auzitegi nazionaleko auzi** (8); **auzitegi nazionaleko baltasar** (38); **auzitegi nazionaleko epaile** (57); **auzitegi nazionaleko epailea** (7); **auzitegi nazionaleko epaileak** (79); **auzitegi nazionaleko epailearen** (23); **auzitegi nazionaleko espetxe** (14); **auzitegi nazionaleko fernando** (30); **auzitegi nazionaleko fiskalak** (12); **auzitegi nazionaleko fiskalburu** (14); **auzitegi nazionaleko fiskaltzak** (12); **auzitegi nazionaleko guillermo** (6); **auzitegi nazionaleko ismael** (6); **auzitegi nazionaleko iturriek** (6); **auzitegi nazionaleko juan** (34); **auzitegi nazionaleko presidente** (7); **auzitegi nazionaleko salak** (7); **auzitegi nazionaleko zigor** (30); **auzitegi nazionalera deklaratzera** (15); **auzitegi nazionalera eraman** (11); **auzitegi nazionalera joan** (7)

baina auzitegi gorenak (6); **baina espainiako auzitegi** (6); **baionako auzitegi** (8); **baita auzitegi** (7); **batuetako auzitegi gorenak** (6); **belgikako auzitegi gorenak** (7); **berretsi du auzitegi** (6); **beste auzitegi** (7); **bilbo eaeko auzitegi** (6); **bilbo espainiako auzitegi** (11); **bilboko auzitegi probintzialeko** (6); **da auzitegi** (39); **dio auzitegi** (18); **dio espainiako auzitegi** (9); **diote auzitegi** (7); **dira espainiako auzitegi** (6); **ditu auzitegi** (13); **ditu espainiako auzitegi** (8); **dituzte espainiako auzitegi** (7); **donostia espainiako auzitegi** (29); **du auzitegi gorenak** (13); **du auzitegi konstitucionalak** (10); **du auzitegi nazionalak** (24); **du auzitegi nazionaleko** (16); **du eaeko auzitegi** (10); **du espainiako auzitegi** (48); **duen auzitegi** (12); **dute auzitegi** (15); **dute espainiako auzitegi** (14); **eaeko auzitegi nagusiak** (90); **eaeko auzitegi nagusian** (42); **eaeko auzitegi nagusiaren** (17); **eaeko auzitegi nagusiari** (9); **eaeko auzitegi nagusiko** (59); **eaeko auzitegi nagusira** (11); **eaeko justizia auzitegi** (61); **eduardo fungairiño auzitegi** (6); **egin du auzitegi** (6); **epaileak auzitegi** (6); **erabakia espainiako auzitegi** (6); **erresuma batuko auzitegi** (10); **eskatu du auzitegi** (8); **espainiako auzitegi gorenak** (122); **espainiako auzitegi gorenaren** (19); **espainiako auzitegi gorenean** (22); **espainiako auzitegi goreneko** (27); **espainiako auzitegi gorenera** (9); **espainiako auzitegi konstitucionalak** (68); **espainiako auzitegi konstitucionalaren** (13); **espainiako auzitegi konstitucionalari** (8); **espainiako auzitegi konstitucionalean** (23); **espainiako auzitegi konstitucionaleko** (9); **espainiako auzitegi nazionala** (29); **espainiako auzitegi nazionalak** (166); **espainiako auzitegi nazionalaren** (35); **espainiako auzitegi nazionalari** (11); **espainiako auzitegi nazionalean** (126); **espainiako auzitegi nazionaleko** (335); **espainiako auzitegi nazionalera** (42); **espainiako auzitegi nazionaletik** (8); **espainiako gobernuak auzitegi** (7); **estatu batuetako auzitegi** (12); **frantziako auzitegi gorenak** (10); **frantziako krimen auzitegi** (7); **fungairiño auzitegi nazionaleko** (7); **garzon espainiako auzitegi** (23); **gasteiz espainiako auzitegi** (6); **gobernuak auzitegi konstitucionalean** (8); **grande marlaska auzitegi** (10); **herenegun espainiako auzitegi** (9); **israelgo auzitegi gorenak** (24); **israelgo justizia auzitegi** (7); **justizia auzitegi gorenak** (10); **justizia auzitegi nagusiak** (51); **justizia auzitegi nagusian** (9); **justizia auzitegi nagusiaren** (13); **justizia auzitegi nagusiko** (24); **kaliforniako auzitegi** (6); **ko auzitegi** (9); **kontra espainiako auzitegi** (6); **londresko auzitegi** (10); **madril espainiako auzitegi** (8); **madrileko auzitegi** (6); **madrilgo auzitegi nazionalean** (7); **marlaska auzitegi nazionaleko** (10); **marlaska espainiako auzitegi** (24); **massachusettseko auzitegi** (7); **mexikoko auzitegi gorenak** (10); **nafarroako auzitegi nagusiak** (11); **nafarroako auzitegi nagusiko** (7); **nafarroako justizia auzitegi** (44); **nazioarteko auzitegi** (8); **olmo espainiako auzitegi** (12); **orain auzitegi** (7); **parisko auzitegi batek** (6); **paueko auzitegi** (6); **piñeiro eaeko auzitegi** (13); **turkiako auzitegi** (7); **txileko auzitegi gorenak** (7); **ukrainako auzitegi gorenak** (7); **urtean espainiako auzitegi** (6); **zen auzitegi** (12); **zen espainiako auzitegi** (9); **zion auzitegi** (7); **zioten auzitegi** (6); **ziren auzitegi** (7); **zituen auzitegi** (11); **zituen espainiako auzitegi** (13); **zuen atzo auzitegi** (11); **zuen auzitegi gorenak** (10); **zuen auzitegi nazionalak** (10); **zuen auzitegi nazionaleko** (6); **zuen eaeko auzitegi** (11); **zuen espainiako auzitegi** (27); **zuten auzitegi** (10); **zuten espainiako auzitegi** (9)

nazioarteko justizia auzitegia (6); **nazioarteko zigor auzitegia** (6)

administrazio auzitegiak (13); **apelazio auzitegiak** (10); **auzitegiak artxibatu egin** (6); **auzitegiak atzera bota** (13); **auzitegiak atzo** (14); **auzitegiak bere** (7); **auzitegiak bertan behera** (6); **auzitegiak dio** (7); **auzitegiak erabaki** (8); **auzitegiak erredakzioa** (15); **auzitegiak ez du** (11); **auzitegiak ez duela** (6); **auzitegiak ez zuen** (8); **auzitegiak frantzia** (7); **auzitegiak gaur** (7); **auzitegiak hartu** (7); **auzitegiak hartutako** (7); **auzitegiak herenegun** (7); **auzitegiak immunitatea** (6); **auzitegiak legez** (6); **auzitegiak onartu** (9); **auzitegiak sei** (8); **baina auzitegiak** (10); **baionako auzitegiak** (33); **batasuneko justizia auzitegiak** (8); **belgikako auzitegiak** (6); **bizkaiko auzitegiak** (9); **bordeleko auzitegiak** (10); **dio auzitegiak** (14); **ditu auzitegiak** (6); **du auzitegiak** (36); **eaeko auzitegiak** (8); **eskubideen europako auzitegiak** (9); **estrasburgoko auzitegiak** (26); **gipuzkoako auzitegiak** (20); **giza eskubideen auzitegiak** (49); **hagako auzitegiak** (16); **hiriko auzitegiak** (6); **jugoslavia ohirako auzitegiak** (6); **kasazio auzitegiak** (8); **komertsio auzitegiak** (8); **konstituzio auzitegiak** (13); **kontu auzitegiak** (15); **madrilgo auzitegiak** (12); **madrilgo lurralde auzitegiak** (10); **madrilgo probintzia auzitegiak** (6); **nafarroako auzitegiak** (13); **nafarroako lurralde auzitegiak** (10); **nafarroako probintzia auzitegiak** (9); **nazioarteko justizia auzitegiak** (28); **nazioarteko zigor auzitegiak** (24); **ohirako nazioarteko auzitegiak** (6); **pariseko auzitegiak** (8); **parisko auzitegiak** (13); **parisko helegite auzitegiak** (15); **paueko auzitegiak** (34); **paueko dei auzitegiak** (6); **zuen auzitegiak** (22)

administrazio auzitegian (6); **auzitegian deklaratu** (9); **auzitegian egin** (7); **baionako auzitegian** (31); **donostiako auzitegian** (6); **donostiako lurralde auzitegian** (6); **europako auzitegian** (6); **gipuzkoako auzitegian** (9); **giza eskubideen auzitegian** (10); **hagako auzitegian** (9); **hagako nazioarteko auzitegian** (7); **helegite auzitegian** (7); **lan auzitegian** (8); **madrilgo lurralde auzitegian** (9); **nafarroako lurralde auzitegian** (10); **nazioarteko justizia auzitegian** (7); **nazioarteko zigor auzitegian** (9); **paueko auzitegian** (14)

auzitegiaren aintzinean (6); **auzitegiaren arabera** (11); **auzitegiaren atarian** (12); **auzitegiaren aurrean** (22); **auzitegiaren ebazpena** (13); **auzitegiaren epaia** (8); **auzitegiaren erabakia** (17); **auzitegiaren erabakiak** (10); **auzitegiaren erabakiaren** (6); **auzitegiaren esku** (14); **auzitegiaren eskutik** (6); **auzitegiaren ustez** (6); **baionako auzitegiaren aitzinean** (7); **giza eskubideen auzitegiaren** (8); **hagako auzitegiaren** (7); **helegite auzitegiaren** (10); **lurralde auzitegiaren** (7); **nazioarteko auzitegiaren** (10); **nazioarteko justizia auzitegiaren** (8); **nazioarteko zigor auzitegiaren** (12); **paueko auzitegiaren** (7); **zuten auzitegiaren** (7)

justizia auzitegiari (7); **zion auzitegiari** (6)

auzitegiek ez (7); **dute auzitegiek** (6); **espainiako auzitegiek** (8)

auzitegien aurrean (6); **auzitegien esku** (7)

auzitegietara jo (12); **auzitegietara joko** (7)

auzitegiko epaile (11); **auzitegiko epaileak** (12); **auzitegiko epaileek** (7); **auzitegiko fiskal** (7); **auzitegiko fiskalak** (9); **auzitegiko medikuak** (8); **auzitegiko medikuek** (8); **auzitegiko presidenteak** (7); **donostiako auzitegiko** (8); **giza eskubideen auzitegiko** (6); **justizia auzitegiko** (6); **madrilgo lurralde auzitegiko** (6); **nafarroako lurralde auzitegiko** (10); **nazioarteko auzitegiko** (6); **nazioarteko zigor auzitegiko** (6); **parisko auzitegiko** (7); **probintzia auzitegiko** (7)

auzitegira eraman zuten (6); **auzitegira jo** (20); **auzitegira joan** (13); **auzitegira joko** (8); **auzitegira jotzeko** (12); **da auzitegira** (6); **europako auzitegira** (8); **giza eskubideen auzitegira** (12); **justizia auzitegira** (14)

auzitegirat deitua (12); **auzitegirat deituak** (6); **baionako auzitegirat** (7)

---

auzizale *iz/izond* auzien zalea den pertsona.

Auzizale guztiei hartu behar zieat aurrea. Lopez de Arana

---

auzo[1] **1** *iz* herri batean, kaletik bereizirik dagoen etxe multzoa. ik**auzotegi**; **auzune**.

Sarritan borrokan ibiltzen baitzen, ez hainbeste **auzoan** bertan, baizik eta urrun samarreko **auzo** zein herrietan, batek baino gehiagok probatuak zituen Marroren

harramazkak, bai eta jaso ere aurpegian, bizi guztirako, deabruaren orbaina. Juan Kruz Igerabide

-Zoaz eta eskatu **auzoko** guztiei ontziak, ontzi hutsak, ahal dituzun guztiak. Elizen arteko biblia

Nabari zen merkataritza **auzotik** urruntzen zirela. Ramuntxo Etxeberri

Agian jolasean ibiliko ziren **auzoko** umeak. Fernando Morillo

Behin, gure **auzoko** jaialdi batean, soldaduzkari edo intsumisioari buruzko gai batean ari ginen kantari. Andoni Egaña

Goizeko ordu txikietan, **auzo** guztia lotan eta ni, berriz, umearen negarra isildu ezinik. Arantxa Iturbe

Ez zaizkie arrotzegiak bera bezala mendi hegaletan eraikitako **auzoetan** ibiltzen direnei. Pello Lizarralde

Emeki, nik hala-hola ikusten nuen **auzo**-paisaiak amets giroa esaten diogun beste barne-paisaia hori sortu zuen. Koldo Izagirre

Zuen **auzo** parekoak dira makalak, ezta? Joxemari Urteaga

2 *iz* hiri bat edo hiri barruti bat banatzen den zati bakoitza.

Auzo batzuk lotan zeuden artean, burdin sarezko ateak itxita. Karlos Zabala

Luzaide, zabal baino anitzez luzeago baita, horrengatik ezarria izaiten ahal zen Luzaide edo Luze bide, nola baitira etxeen eta **auzo** edo kartierren izenak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mike, Watts **auzoan** sortua zen eta bere amaren etxetik ez zen anitz urrundu. Itxaro Borda

Bere **auzoa** baino lau kale beherago zegoen geltokian geratu eta neonezko argi bizi-bizien artean ibili zen, larruzko poltsa besapean hartuta. Jasone Osoro

Garraiobide baten izena zuen zinema areto bat behintzat, horretaz ziur nago, langile **auzoren** batean, Roubaix edo Tourcoing alde horretan, Foxen leloa eta txokolate eta bainilazko izozki bat mutikoen haginetako mina sendatzeko oraindik ere aski ziren garai batean. Josu Zabaleta

Bilboko Zorroza **auzoko** euskaltegiko 20 urteko ikasleari, 55 urteko frontoi-gizon ilehoriz tintatutako purudun ipurdia aterea duen euskaldun zaharrari. Joxean Sagaztizabal

Bai, ordea, hango **auzo** ezagun bat, Ametsen Fabrika deitzen zuten hura, bere eskuetan ez zuen lantegi bakarra: Hollywood. Harkaitz Cano

Zorrotzaurre **auzoan** erosi nuen pistola. Sonia Gonzalez

Atenasera itzuli eta bere eskola ireki zuen Lizeo **auzoan**. Askoren artean

Aitor Mendiluzeri jarri zioten gai hau 1997an Elgoibarko San Migel **auzoan**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

3 *iz* (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa). Ingurukoa, ondokoa.

Hauek esan eta bihotz samin biziz negar egiten nuen; eta hara non, **auzo** etxetik lelo bat dut entzuten behin eta berriro, ez dakit mutiko ala neskatorena: "Hartu eta irakur! Imanol Unzurrunzaga

Hau **auzo** lana duk, hi. Pablo Sastre

Ukatu arren barrena jaten ari zaizkigun **auzo**-hizkuntza bietan da eguzkia gizonezko. Joxerra Garzia

Eta bere indar handi hori **auzo**-etsai diren filistearren aurka erabiltzen du, israeldarren fabore. Jose Antonio Mujika

Gorputzeko atal gehienetan, zehar-konexioak izaten dituzte tarteka **auzo**-arteriek, erreserbako zirkulazio bat beti prest izateko larrialdietarako. Irene Aldasoro

Menditarrak deitu iraultzaileak ohartu zirelarik ez zituztela haien ideiak onartzen ez herritarrek, ez **auzo** herriek, ideien bataila gal beldurrez, izitu ziren eta etsaiak bilatzen eta ehizatzen hasi, bazter guztietan. Piarres Xarriton

4 ***alkate-auzo*** *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Mota honetako erakundeen bidez, modu deszentralizatuan administratzen dira auzoak, herrixkak, **alkate-auzoak** (pedanías), baserriak, kontzejuak edo antzeko izenak dituzten biztanlegune bereiziak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundea edo, zentsu zabalago batean **alkate-auzo**, udalerriaren barruan sakabanatuta dauden herriguneek kudeaketa deszentralizatua izan dezaten sortutako toki-erakundea da. ETC-entziklopedia

Huertapelayo Zaorejas udalerriaren **alkate-auzoa** da, Guadalajarako probintziaren hego-ekialdean dago, Tajo ibaiaren goiko harkaitzetan, hain zuzen ere. ETC-entziklopedia

2008an **alkate auzo** bat osatzeko eskaera aztertu zuen Udalak, eta oraindik ere sortu gabe dago. 2013an kontsulta egingo dela iragarri zuen uztailaren 15ean Gipuzkoako Foru Aldundiak. ETC-entziklopedia

Soria, Duero ibaiaren goiko atalean kokatuta dago. Udalerri honen eremua Soria hiriak berak eta hiru **alkate-auzok** osatzen dute: Otoruelos, Pedrajas eta Toledillo. ETC-entziklopedia

Valfermoso de las Monjas Espainiako **alkate auzoa** da, Ledanca udalean, Guadalajarako probintzian, Gaztela-Mantxa erkidegoan. ETC-entziklopedia

5 ***auzo alkate*** *(corpusean ez dago; ETCn **436** agerraldi)*

Auzo-alkatea aukeratzeko hauteskundeak aprobetxatuta, abiadura handiko tren (AHT) proiektuari buruzko herri galdeketa egingo dute igandean Bergarako Angiozar auzoan (Gipuzkoa). ETC-prentsa

1992az geroztik **auzo alkatea** eta herri batzarra dituzte, eta Zubietari dagozkion gaiak haiekin aztertu eta hitzartu behar dituzte nola Usurbilgo Udalak, hala Donostiakoak. ETC-prentsa

Opakua, Egileor, Arrizabalaga eta Alanguako (Araba) **auzo alkateak** ere parke eolikoen egitasmo berrien kontra agertu ziren atzo. ETC-prentsa

Auzo alkateak aukeratzeko bozketak zituzten egun haietan Aramaion, eta hori baliatuta antolatu zuten azpiegiturari buruzko inkesta. ETC-prentsa

Angiozarko **auzo alkatea** da Mila Elorza, eta Abiadura Handiko Trenak (AHT) Bergarako auzo txikian ekarriko duen kalteari aurre egiteko ari da parte hartzen AHT Gelditu! Elkarlana taldean. ETC-prentsa

Erlategien zaintzea, eztia ekoiztea eta museora datozenei ongi-etorria egitea aski lan ez baititu, Eltso herri txikiko **auzo-alkate** ere bada, beti dator ondo teknikari bat ur hoditeria berritu beharra zeukan baserrirako. ETC-prentsa

Uribarriko Jone Bergaretxe **auzo-alkateak** kontatu digunez, oso antzinakoa da auzoko ermita edo "goiko eliza", sasoi batean esaten zioten moduan. ETC-prentsa

Ez da bide luzea, baina distantzia emozionala handiagoa dela diote Gilen Garcia Debako alkateak (EH Bildu) eta Arantza Egaña Itziarko **auzo alkateak**. ETC-prentsa

Auzo alkateek ez dute inork sinatu eta udal-langileei dagokionez, batzuk sinatu egin zuten, beste batzuk ez, eta gehienak Forua errespetatzeko baldintzarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Goazen **auzo-alkatearengana**, dokumentua egin dezan. ETC-literatura, saiakera

Nire amaren herrixkan, ordea, gaua zeruan eta sahatsetan, garbitokiko asketan hasten da, plazatik urruti, eta hilerrian eta **auzo-alkatearen** etxean barrena irristatzen da gugana. ETC-literatura, saiakera

Behin, galde egin nion nekazari batek esan zidan **auzo-alkateak** zeukala giltza. ETC-literatura, saiakera

Basoak ustiatzeko eta ekonomia kudeatzeko gaitasuna mantendu zituen, eta **auzo-alkate** bat izendatzeko aukera zeukan. ETC-entziklopedia

Ereñotzuk, lau bokalez eta **auzo-alkate** batez osatutako auzo-batzarra du. ETC-entziklopedia

6 ***auzo-bide***

Bi versta egin zituzten, aurkitu zuten **auzo-bidearen** hasiera bihurgune batean, egin zituzten bi versta gehiago, eta hiru, eta lau, eta bi solairuko etxe harrizkoa ez zen inon ageri. Jose Morales

Beltzak taldetan edo banaka zebiltzan **auzo-bide** eta behi-bideetan, Schenectady eta Jackson bitartean. Anton Garikano

Muga automobilez pasatu ondoren, ni nengoen lekuan agertu behar zuen **auzo-bide** batetik barrena. Rafa Egiguren

7 ***auzo elkarte***

Hamabiak pasatxo zirenean, **auzo elkartetik** irten eta suziriak jaurtiz eman zion jendeak hasiera mendi martxari. Berria - Euskal Herria

Ostiralean, San Frantzisko kaleko **auzo elkarteetako** kideak izango dira hizlari. Berria - Kultura

Gainera, **auzo elkarteen** eta zenbait alderdi politikoren babesa jasoko dute, ELAk iragarri duenez. Berria - Ekonomia

g Eva Fernandez (Bartzelonako **Auzo Elkarteen** Federazioko lehendakaria). Berria - Harian

Duela 25 urte, xakezale batzuek **auzo elkarteak** haurrei xakea erakusteko lokal bat uztea lortu zuten. Berria - Kirola

Papertxo batean idatzita zituen bi **auzo elkarteren** helbideak. Unai Iturriaga

Beti **Auzo Elkarteko** lokaletan egoten da, hamaika lanetan sartua. Jokin Muñoz

Betidanik izan duzu erraztasun berezia irakasleengana arrimatzeko, ez duzu-eta ama alferrik eduki institutuko Eskola Kontseiluan sartuta, bazterrak nahasten -eta Guraso Elkartean, eta Emakume taldean, eta **Auzo Elkartean** ...-. Jokin Muñoz

Auzo-elkarteko lehendakaria izan da behin baino gehiagotan, eta, une honetan bertan ardurarik ez duen arren, eragin handia du oraindik ere batzarretan. Iban Zaldua

8 *auzo etxe*

Aitzineko asteburuan bururatu gabe utzitako etxola oroitarazi nion; **auzo etxeko** seme Enekoren tiragoma bezalakoa eginen niola agindu; harekin txoritara aterako ginela hitz eman... Aingeru Epaltza

Behin, behe auzoetako teilape batera bisita egitean, **auzo-etxe** bateko korridoretik zihoala, emakume bat ondora etorri zitzaion, besoetan haur bat zuela, eta gaixo bat ikusi nahi zuen galdetu zion. Josu Zabaleta

Hauek esan eta bihotz samin biziz negar egiten nuen; eta hara non, **auzo etxetik** lelo bat dut entzuten behin eta berriro, ez dakit mutiko ala neskatorena: "Hartu eta irakur! Hartu eta irakur!". Imanol Unzurrunzaga

Alhondiga biltegi zaharra goitik behera birmoldatzen ari dira, bertan hainbat zerbitzu hartuko dituen **auzo etxe** handia eta aparkalekuak egiteko. Berria - Euskal Herria

Santutxuk, Bolueta eta Begoñak udalerriko 4. barrutia osatzen dute, eta bertan bizi diren 48.000 herritarrentzat Udalak **auzo-etxe** bat besterik ez du, "liburutegi eta ikasgela bakarrarekin», nabarmendu zuten. Berria - Euskal Herria

Hori bai, **auzo etxeko** lokalak eskaini beharrean, oraingoan Udalak euren kontura lokal bat alokatzeko proposatu die. Berria - Euskal Herria

9 *auzo gorri*

Urtebete eman Bonbaiko **auzo gorrietan** eta ikasiak zituen bere laneko ahizpek gizonezkoak liluratzeko erabiltzen dituzten arte, segada eta sino-minokeria guztiak. Gotzon Garate

Bartzelonako **auzo gorriko** kale bakarti batetik bakar-bakarrik nindoala, gezurrezko pistola bat eskuan, mihi-pozoiduna agertu zitzaidan, bat-batean. Joan Mari Irigoien

10 *auzo herri*

Hazparneko su hiltzaileak eta **auzo herrietakoak** deituak izan dira eta haueri esker egoitza beiratu ahal izan dute erretzetik. Herria

Herritarrak hor zirela, bainan ere **auzo herrietako** laborari ainitz. Herria

Etxerakoan, **auzo herriko** ostatu batean gelditu nintzen eta, zigarroak erosteko aitzakiarekin, bi Ricard edan nituen. Daniel Landart

Pentsatu dugu, luzaidarrak Luzaidetik noiztenka ateratzen diren bezala, zenbait **auzo herritara** jauzi bat egin beharko zela, eskualdeko giroa hobeki ezagutarazteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Auzo herrirat heldu nintzenean, bazen jadanik jendea polliki bildua. Janbattitt Dirassar

Oraindik ere, hala burlatzen dira euskaldunez **auzo herrietakoak**, landesak eta biarnesak batez ere. Iñigo Aranbarri

Eta bestalde nolako fama ez zen barreiatzen ari **auzo herrietan** ! Denak irriz ari ziren arima herratu bat bazela. Michel Oronoz

Beste bat, **auzo herrikoa**, ene mendia kasik alde beretik ikusten zuena: eritu zen eta bide bazterrean hila atzeman zuen bere anaiak: izigarri maite nuen, denetako abilena zen ene ustez, alegia deus. Piarres Aintziart

Gizonezko nahiz emakumezko esklaborik eduki nahi baduzue, eros itzazue **auzo-herrietako** jende artetik. Elizen arteko biblia

Ez baitzen nolanahiko hondamena izan, Siziliako lurraldeetan sortu eta nagusiturik, **auzo herrietako** begiak erakarri zituen su ekaitza, ortzi sabai ketsu guztiak txinpartatzen ikusirik, bularretan kezka izutua sartu zitzaienean, gauzen izaerak zer matxinada ote zekarren. Xabier Amuriza

Atxetan mamitua, lehen **auzo herrian** ; eta ez Labartzan bertan. Txillardegi

11 *auzo herritar*

Pentsatu dugu, luzaidarrak Luzaidetik noiztenka ateratzen diren bezala, zenbait **auzo herritara** jauzi bat egin beharko zela, eskualdeko giroa hobeki ezagutarazteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Igandean Izturitzen kermeza baita, Aihertar eta **auzo herritarrek** saldo haundian erantzunen diegu Izturitztarrek egiten daukuten gomitari. Herria

Hogoi minuta eta oren erdi bat barne lasterkaldi hau bururatua izanen da eta Ortzaiztar eta **auzo herritar** gazteak dira sailkatuak izanen bakarrik. Herria

12 *auzo historiko*

Urteak joan eta urteak etorri, 1950eko hamarkadan sortu ziren Gasteizko **auzo historikoen** betiko aldarrikapenei hiriaren zabaltzearekin sortutako auzo berrien arazoak gehitu zaizkie. Berria - Euskal Herria

13 *auzo latino*

Goizean goiz jaikitzen zen, sapelarra, artatxiki adarrak, txori opilak erosten zizkien handizkako saltzaileei; gero, abiatu, ibaia zeharkatu, eta **auzo latinoan** barrena ibiltzen zen, Saint-Jacques kaletik Dauphine kalera, eta handik Luxembourgeko lorategiraino. Karlos Zabala

14 *auzo pobre*

Ondoren, Humphries jaunak berari zegokion biografia irakurri zuen, luzea, tristea, xehea eta prosa txukunez idatzia; eta Roberts jaunak **auzo pobreei** buruzko istorio bat kontatu zuen, liburuan ezin sartu izan zena. Koro Navarro

Bertan Napoliko **auzo pobre** batean jaiotako umeen idazlanak jasotzen dira, gai aski arrunten inguruan egindakoak. Bernardo Atxaga

Haren arabera, hiesa "azkar» ari da zabaltzen, "bereziki **auzo pobreenetan** , emakumeen artean». Berria - Gaiak

-Eta zenbat holako bizi diren New Yorkeko **auzo pobre** hauetan! Iñaki Zabaleta

Ni ez naute **auzo pobre** batean espetxeratuko West End-en afaltzeagatik, ez horixe! Antton Olano

15 *auzo txinatar*

Nahiz eta Txinako hiri batean izan, egiazko mugak auzo europar eta **auzo txinatarren** artean ezarriak izaten ziren. Ramuntxo Etxeberri

Bartzelonan ikasi zuen, eta bertako **auzo txinatarrean** bizi izan zen. Lander Garro

Auzoan droga sartu eta guztiz hondatu zen arte Europako **auzo txinatarren** artean onena zela gogorarazi dute orduko prostitutek. Berria - Harian

Azkenean **auzo txinatarrean** aurkitu nuen hogeita bost metro koadroko etxebizitza bat, behinola babes ofizialekoa izandakoa. Iban Zaldua

16 *auzo txiro*

Abortatu zuen neska eta Rouengo **auzo txiroetako** ama ezkongabea egoera berean zeuden. Joseba Urteaga

Edertasuna, bestalde, izan liteke polit nahiz itsusi: **auzo txiroetan** , pub merkeetan, sentimendu hitsetan ehizatzen du Joycek epifania. Markos Zapiain

Gero, **auzo txiroetako** hornidura modu berri batez nola banatu; eta, azkenik, lege humanitario bat taxutzen ari zen, oso era nahasian oraindik. Karlos Zabala

Batetik, Nikaraguako hiriburu Managuako **auzo txiro** eta baztertuetan bizi diren biztanleentzat Mikrokredituen Programa bultzatzea. Berria - Kultura

Kanalen hiriko **auzo txiro** batean hazi zen Davids, eta orain taldekide duen Patrick Kluiverten lagun egin zen han. Berria - Kirola

Lizeoa Santiagoko **auzo txiroenetako** batean dago, Renta Komunan. Berria - Euskal Herria

Halaz ere, antza, adabakizko neurri horrek porrot egin du, gurasoek ez baitute oso gogoko **auzo txiroetatik** datorren migrazioa. Iñaki Heras

Auzo txiroa da, baina, Amerikako beste hiri askok ez bezala, badu halako xarma berezi bat bere arruntasunean. Xabier Paya

17 ***auzoan*** *adlag* kanpoan, aparte.

-Ez duzu umorea **auzoan** , Fubuki. Joxan Elosegi

Egia erran, xelebrekeria iruditu zitzaidan haren izena irakurtzea lehiaketaren oinarrien berri ematen zuen esku-orrian, erotismoa **auzoan** baitzuten haren idazlanek. Aingeru Epaltza

Auzoan , aldiz, ikusgarri egiten zaigu heriotza: mira sortzen digu, morboa; eta, sexuarekin batera, bera da audientziarik handienak erakartzen dituen ikuskaria. Joxerra Garzia

Etxean edo **auzoan**, herriko bestetan, Baionako karrika eta arkupetan, gauezko trenetan, Pariseko bosgarren estaietako neskame-ganbaretan, ezer ez da sobera, asmakizunik ez da eta giroa oso ongi emana dago. Janbattitt Dirassar

18 *auzoko ateak ixtera joan* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Bera botatzeko erabakian zaleekin izandako harreman zailak eraginik izan ote duen galdetuta, Camachok polemikak saihestu nahi izan zituen: **Â"Auzoko ateak ixtera joaterik** ez dut nahi; ez diot inori kargu hartu nahi; ez da nire estiloaÂ". ETC-prentsa

Ez zaitez **auzoko ateak ixtera joan**, memelo hori!". ETC-literatura, saiakera

19 *bazter auzo* *(orobat **bazterrauzo** g.er.)*

Hala, egoera berriak emandako haize ttikiarekin, nire **bazter-auzoa** utzi eta hiriaren erdialdera jaitsi nintzen arratsalde pasa. Bernardo Atxaga

Halako batean, **bazter auzoetan** euren egoeraz nazkatuta zeuden gazteek autoak erretzeari ekin zioten. Berria - Harian

Erromako **bazter auzoetako** proletario mailarik apalenetako eta baztertuenetako langileria eta gazteria ezagutu zituen. Josu Zabaleta

Medellin, Bogota edo Caliko **bazter auzoetan**. Joseba Sarrionandia

Bazter-auzo hartako etorkin galiziarrak zituen bezero bakar, karta-partidak luze eta kontsumizioak labur. Xabier Mendiguren Elizegi

20 *behe auzo*

Ospitaleko praktikanteen artean baziren batzuk xelebre askoak, ospitaleko saguak egiaz, hantxe hamabost-hogei urte zeramatenak, karrera oraindik bukatu gabe, eta **behe auzoetan**, ezkutupean, sendagile askok baino gaixo-bisita gehiago egiten zutenak. Josu Zabaleta

Behin, **behe auzoetako** teilape batera bisita egitean, auzo-etxe bateko korridoretik zihoala, emakume bat ondora etorri zitzaion, besoetan haur bat zuela, eta gaixo bat ikusi nahi zuen galdetu zion. Josu Zabaleta

21 *bizitegi-auzo*

Familia bakar edo gutxiko behinik behin txaletek osatzen dituzte **bizitegi-auzoak**, hainbat euskal tankerakoak eta batzuk euskal izenekoak, karrika izen batzuk ere bai: "Etxahun» etab. Berria - Kultura

Bizitegi-auzo garesti bat, itsasoaren aurrean. Jon Muñoz

Algortako **bizitegi-auzora** iritsi ziren arazorik gabe, Bilbotik atera ondoren ez baitzen trafiko istilurik izan. Joxemari Iturralde

Gure auzoan zalaparta gutxi izaten zen; Hollywoodeko alderdi hau edozein hiri txikitako **bizitegi-auzoa** bezalaxekoa zen gauerdiaren ondoren. Fernando Rey

Poliziaren arabera, hegoaldeko **bizitegi-auzo** batetik ateratzean izan zen tiroketa. Berria - Mundua

22 *etxola auzo* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

RIO DE JANEIROBrasilgo Gobernuak 1,7 mila milioi dolar erabiliko ditu Rio de Janeiroko **etxola auzoetako** baldintzak hobetzeko eta droga trafikatzaileen jarduna eteteko. ETC-prentsa

Poltsa horiek eskoletan, **etxola auzoetan** zein krisialdi humanitarioetan erabili ohi dira. ETC-prentsa

23 *goi auzo*

Omskeko **goi** auzoa gotorleku antzekoa bihurtu zuten. Gero eta gehiago estutzen ari zen hiriaren **goi** auzoaren setioa. Karlos Zabala

24 *juduen auzo*

Ez nien gezurrik esan (erasoak izandako barridean ibili nintzela aitortu nuen), ezta egia osoa ere (odol-pintaketarena ezkutatu nien): norbaitek ikusiko ninduela **juduen auzoan**, baina etxean nintzela txikizioak gertatu baino bi ordu lehenago. Anjel Lertxundi

Ezker aldeak **juduen auzo** zaharrera ematen zuen; han kaleak estuak ziren, elkar besarkatu nahiko balute bezala; eskuin aldea leiho oso estuz apainduta zegoen. Patxi Ezkiaga

-Juduen auzo polit bat dago katedralaren ondoan. Anjel Lertxundi

Ostatua hartua zuten Katiak eta Almak, ordurako, portu aldeko etxe gris zahar itxurako batean, **juduen auzotik** gertu, nik ezagutu nituen karrika estu argipeituak begi bistara zituztela. Felipe Juaristi

25 *langile auzo*

Sutea igande eguerdian gertatu zen, Ycua Bolaños hipermerkatu sareak Asuncion hiriaren kanpoaldeko **langile auzo** batean duen hipermerkatuan. Berria - Mundua

Ordurako, Albertok gotzaindegian adierazia zuen "lanbidea" utzi nahi zuela, eta Donostiako **langile-auzo** batean pisu bila hasia zen, alokatzeko. Juan Kruz Igerabide

Garraiobide baten izena zuen zinema areto bat behintzat, horretaz ziur nago, **langile auzoren** batean, Roubaix edo Tourcoing alde horretan. Josu Zabaleta

Inguruko **langile auzoetakoek**, berriz, ez dute garbi zein erabilera emango zaien han jasoko diren eraikinei. Berria - Kultura

Bitxia egiten zaio **langile auzo** horretara aspaldi itzuli ez izana. Iban Zaldua

Gerora eraikiko ziren beste guztiak, Adurtzako **langile-auzoaren** hazkundearekin batera. Iban Zaldua

Txomin Agirrerenean espero ditugu **langile-auzoetako** giro iraultzazale horren kontrako herra, jende-nahasteak sortzen dion beldurra, aldaketaren aurreko hesia jarri beharra. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere oihua hiriko **langile auzo** guztietara hedatu zen berehala. Harkaitz Cano

Epaigelan leku mugatua zenez, sostengu taldeko batzuk kanpoan gelditu ziren eta Madrilgo elkartasun taldearen ekimenez gosaltzera joan ziren, **langile auzo** baten alderdi komunistaren egoitzara. Berria - Harian

26 *latindar auzo* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

68ko maiatza, berriz, **Latindar auzoan** zen. ETC-prentsa

Errentamenduarekin kontratua bertan behera utzi zuen eta bi solairuko pabilioia alokatu zuen Rue Jacob 20 kalean Pariseko **Latindar auzoan**. ETC-entziklopedia

Latindar auzoan dantza egiteko leku bati buruz berba egin didate. ETC-literatura, saiakera

Betikako Hispalisen jaioa naizenez Latino naiz: eta Parisko **Latindar auzoan** nire murgak eman nituelako Latino naiz. ETC-literatura, saiakera

Aurten, ordea -Frantzian egingo duen azken urtea, haren ustez-, ez da **latindar auzoan** bizi. ETC-literatura, saiakera

Latindar auzoan beharko luke, hiriaren bihotza da, eta neguan gutxien kalteturiko ingurua. ETC-literatura, saiakera

" **Latindar auzoan** zegoen L'espoir izeneko ostatu batera joan gintunan. ETC-literatura, saiakera

27 *merkataritza-auzo*

Inork ez zekien zergatik etorri zen bikote hura **merkataritza auzo** baten zalapartaren erdira bizitzera. Karlos Zabala

Nabari zen **merkataritza auzotik** urruntzen zirela. Ramuntxo Etxeberri

28 *txabola-auzo*

Hego Ameriketako **txabola-auzoetan** haurrak izpirik utzi gabe desagertzen omen dira, eta ez, preseski, inork luxuzko hoteletara eramaten dituelako. Aingeru Epaltza

Aireportua utzi eta handik gutxira, ezker-eskuin agertzen hasi ziren **txabola-auzoak**. Xabier Montoia

Narkotrafikatzaileen eta Poliziaren arteko liskarrak eta neurrigabeko indarkeria kasuak ohikoak dira Rio de Janeiroko (Brasil) **txabola auzoetan**. Berria - Gaiak

Izan ere, 130 milioi pertsona **txabola auzotan** bizi dira, ur garbia jasotzeko eta ur zikina bideratzeko azpiegiturarik gabe. Berria - Gaiak

Hiru hilabete baino gutxiago egin ditu kanpoan, eta hala ere, horren denbora laburrean, **txabola-auzoak** autobideaz bestaldera igaro eta aireportuaren ekialderantz hedatu dira. Oskar Arana

29 *txinatar auzo*

Europako **txinatar auzoen** artean, onenetako bat zen Bilbokoa. Berria - Harian

Ninak errazki aurkitu zuen Quiapo auzoa Binondo **txinatar auzotik** hurbil zegoela. Ramuntxo Etxeberri

---

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aihertar eta auzo (3); **ala auzo** (6); **alde zaharra auzo** (4); **alde zaharreko auzo** (4)

auzo aldera (7); **auzo arteko** (5); **auzo bakarra** (3); **auzo baketsu** (3); **auzo bakoitzak** (3); **auzo bakoitzean** (5); **auzo bakoitzeko** (3); **auzo bat da** (5); **auzo batean bi** (3); **auzo batean bizi** (5); **auzo batek** (14); **auzo bateko** (8); **auzo baten** (5); **auzo batera** (8); **auzo batetik** (5); **auzo bati** (3); **auzo batzu** (4); **auzo batzuek** (4); **auzo batzuen** (3); **auzo batzuk** (8); **auzo baztertuetako** (4); **auzo berean bizi** (4); **auzo bereko cardenal** (3); **auzo berri bat** (4); **auzo berria** (6); **auzo berriak** (5); **auzo berrian** (5); **auzo berriko** (3); **auzo berrira** (3); **auzo bide** (3); **auzo bizi** (3); **auzo den** (3); **auzo edo kartier** (3); **auzo elkarte** (8); **auzo elkartea** (4); **auzo elkarteak** (19); **auzo elkartean** (3); **auzo elkartearen** (4); **auzo elkarteek** (6); **auzo elkarteetako** (4); **auzo elkartek** (7); **auzo elkarteko buru** (5); **auzo elkarteko kide** (4); **auzo elkarteko kideak** (7); **auzo elkarteko kidearen** (3); **auzo elkarteko lehendakari** (3); **auzo elkarteko lehendakaria** (3); **auzo elkarteko ordezkariak** (3); **auzo elkarteko presidente** (4); **auzo erdaratan** (3); **auzo eta herri** (4); **auzo eta herrietan** (5); **auzo etxe** (3); **auzo etxeetan** (3); **auzo etxeko** (3); **auzo gisa** (4); **auzo gune** (17); **auzo gunea** (5); **auzo gunean** (15); **auzo guneko** (4); **auzo guziak** (3); **auzo guztia** (12); **auzo guztiak** (6); **auzo guztian** (3); **auzo guztietako** (4); **auzo guztietatik** (3); **auzo hartako** (8); **auzo hartatik** (5); **auzo hau** (9); **auzo hauetan** (4); **auzo herria** (3); **auzo herriak** (7); **auzo herrian** (13); **auzo herriek ere** (3); **auzo herriekin** (4); **auzo herrien artean** (3); **auzo herrien arteko** (3); **auzo herrietako auzapezak** (3); **auzo herrietako jende** (3); **auzo herrietakoak** (4); **auzo herrietan gaindi** (3); **auzo herrietara** (3); **auzo herrietarik ere** (3); **auzo herrietarik heldu** (4); **auzo herrietatik** (4); **auzo herriko** (8); **auzo herrikoa** (3); **auzo herritarrak** (6); **auzo herritik** (4); **auzo honek** (5); **auzo honetako** (3); **auzo honetan** (20); **auzo hori** (4); **auzo horiek** (5); **auzo horietako** (3); **auzo horietan** (7); **auzo horrek** (4); **auzo horretako** (4); **auzo horretan** (19); **auzo hortako** (4); **auzo hortan** (4); **auzo huntan** (3); **auzo hura** (5); **auzo hurbilak** (3); **auzo hurbilenak** (4); **auzo ibili** (3); **auzo katolikoetatik** (3); **auzo latindarreko** (7); **auzo lotsa** (4); **auzo lur** (3); **auzo oso** (3); **auzo osoak** (3); **auzo osoan** (7); **auzo pobre** (6); **auzo pobrea** (3); **auzo txiki** (4); **auzo txinatarra** (3); **auzo txiro batean** (4); **auzo txiroan** (3); **auzo txiroetako** (6); **auzo txiroetan** (7); **auzo xiita** (4); **auzo zahar** (5); **auzo zaharra** (5); **auzo zaharreko** (3); **auzo zein** (4); **auzo ziren** (3)

bai auzo (3); **bai eta auzo** (3); **bainan ere auzo** (3); **bartzelonako auzo elkarteen** (3); **bazter auzo** (3); **bekatuaren auzo** (3); **bere auzo** (11); **bertako auzo** (3); **bertze auzo** (3); **beste auzo batean** (3); **beste auzo batzuetan** (4); **bi auzo** (21); **bilboko auzo** (3); **bizi zen auzo** (4); **city auzo xiitan** (3); **da auzo** (10); **dagoen auzo** (6); **den auzo** (4); **dio auzo** (3); **dira auzo** (5); **diren auzo** (7); **ditu auzo** (3); **dituen auzo** (5); **du auzo elkarteko** (3); **duen auzo** (4); **dugu auzo** (3); **dute auzo** (10); **ekialdeko auzo** (3); **elgarren auzo** (5); **elkarren auzo** (3); **euskal herriko auzo** (8); **gasteizko auzo** (5); **gure auzo** (12); **hainbat auzo** (8); **haren auzo** (3); **hau auzo** (3); **hazparne eta auzo** (4); **hazparneko auzo** (3); **herri eta auzo** (16); **herrialde auzo** (4); **herriko eta auzo** (3); **herritar eta auzo** (12); **hiriburuak auzoz auzo** (6); **hiriburuko auzo** (7); **hiriko auzo batean** (3); **hiru auzo** (4); **hori auzo** (3); **inguruko auzo** (6); **iraken auzo diren** (3); **izeneko auzo** (3); **kanpoaldeko auzo** (3); **kartier edo auzo** (6); **langile auzo batean** (3); **larresoroar eta auzo** (3); **lehen auzo** (10); **mailako auzo** (3); **nahiz eta auzo** (3); **new yorkeko auzo** (4); **osatutako auzo** (4); **parisko auzo** (8); **sadr city auzo** (5); **san andres auzo** (4); **zaharra auzo elkarteko** (3); **zazpi auzo** (3); **zegoen auzo** (5); **zen auzo hartan** (3); **zenbait auzo** (6); **ziren auzo** (9); **zuen auzo** (12); **zuten auzo** (8)

auzoa da (13); **auzoa dagoen** (3); **auzoa ere** (3); **auzoa ez** (4); **auzoa ezagutzen** (4); **auzoa zen** (3); **bere auzoa** (6); **da auzoa** (6); **donostiako auzoa** (3); **gure auzoa** (7); **lehen auzoa** (10); **loiola auzoa** (3); **nire auzoa** (5); **queens auzoa** (3); **txantrea auzoa** (3); **williamsburg auzoa** (3); **zegoen auzoa** (3); **zen auzoa** (4); **zup auzoa** (3)

auzoak aski (3); **auzoak auzoekin** (3); **auzoak dituen** (3); **auzoak ere** (4); **auzoak ez** (4); **auzoak hor** (4); **auzoak lotzen** (3); **beste auzoak** (3); **bi auzoak** (4); **du auzoak** (3); **lehen auzoak** (5); **txabola auzoak** (3)

auzoaren berri (3); **auzoaren bihotzean** (3); **auzoaren erdi** (3); **auzoaren izena** (3); **dute auzoaren** (3); **gaineko auzoaren** (3); **gure auzoaren** (3)

auzoari buruzko (3); **zion auzoari** (4); **zure auzoari** (3)

auzoek ez (5); **herrialde auzoek** (4)

auzoak auzoekin (3)

auzoen artean (24); **auzoen arteko laguntza** (3); **auzoen eguna** (3); **beren auzoen** (3); **bi auzoen** (3); **herrialde auzoen arteko** (3); **txabola auzoen** (3)

auzoetako bizilagunek (4); **auzoetako jaiak** (5); **bazter auzoetako** (6); **beste auzoetako** (3); **herri auzoetako** (3); **herri eta auzoetako** (3); **herrialde auzoetako** (6); **inguruko auzoetako** (3); **txabola auzoetako** (4)

auzoetan bizi (5); **auzoetan ez** (3); **auzoetan lan** (3); **auzoetan sartu** (3); **bazter auzoetan** (7); **bilbo zaharra auzoetan** (3); **herri eta auzoetan** (28); **hiri eta auzoetan** (4); **txabola auzoetan** (4)

aberatsen auzoetara joan (3)

auzora bizitzera (3); **auzora heldu** (3); **auzora iritsi** (6); **auzora itzuli** (3); **auzora itzultzeko** (3); **auzora joan** (7); **beheko auzora** (4); **gure auzora** (7); **nire auzora** (3)

auzoren batean (3); **auzoren bateko** (3)

iruñeko hainbat auzotan (3); **zenbait auzotan** (10)

auzotik abiatuko dira (3); **auzotik gertu** (7); **auzotik hurbil** (3); **auzotik kanpo** (4); **auzotik pasatzen** (3); **gure auzotik** (5); **zegoen auzotik** (3)

herri eta auzoz (10); **hiriburuak auzoz auzo** (6)

---

auzo[2]

1 *iz* norbaitentzat, inguruko etxeren batean bizi den pertsona. ik **auzoko**.

-Lehen pisuko **auzo** berriarekin egon naiz gaur goizean -azaldu zien. Unai Elorriaga

"Mekauen!" Zer errango zuten **auzoek**? Ramuntxo Etxeberri

Benetako mallorna zen, **auzo** guztien mirespenaren lekuko. Agustin Otsoa

Bestenaz ez genezake sinets huts egiten dutela, hala nola, berriki ez baitut sinetsi tronpatzen zela, bere etxea **auzoaren** oiloarekin airatu zitzaiola oihuka ari zena, ez baitzitzaidan iruditzen haren izpiritua hain nahasia zela. Piarres Xarriton

Auzoak omen ginen, eta alboko gela seinalatu zuen. Anjel Lertxundi

Frantsesekin harremanak izateaz **auzo** batek akusaturik, beren aitaren xerka joan ziren. Xabier Montoia

2 ***auzo lehen*** hurbileneko auzokidea.

Marisantz **auzo lehenak** bikotearen irudia ozkan jarri zuen: eskuilaz mutikoaren jantzia xahatu zuen, usain onez perdukatu eta neskatxaren matelan malinki haztuak ziren ile marrak zuzendu zituen. Itxaro Borda

22 urtez bere **auzo lehenetarik** bat ukan duen Jan Battit Bidart-Kuxkurrio omore handiko kantari irrintzina egileak irakurtu dizkion lerro hauek hunkigarri ziren. Herria

3 ***auzo lotsa*** *(orobat **auzolotsa**)* besteek esandako edo egindakoengatik sentitzen den lotsa.

Irudiak **auzolotsa** eragiten badute ere, haiek harro erakusten dizkigute osaba-izeba guztien mozkorraldia agerian uzten duten pasarteak. Harkaitz Cano

Eta amak pasadizoa kontatu zuenean munduko balentriarik handiena egin izan balu bezala, **auzo lotsa** sentitu nuen. Anjel Lertxundi

Auzo lotsagatik edo, Bilbao-2000 indizeak gauza bertsua egin zuen atzo. Berria - Ekonomia

Ikusi nahiko nuke **auzolotsa** pasatzen. Hasier Etxeberria

Valmont jauna, omen ederrez, dirutza handiz, anitz ezaugarri atseginez, garaiz ohartu zaio ezen gizartean nagusi izateko aski zela laudorioa eta **auzolotsa** ber trebeziaz erabiltzea. Jon Muñoz

Kasik oihu egin du Laurak, garagardoa begietan, eta batek baino gehiagok, **auzo lotsa** sentiturik, begirada jaitsi dugu. Patxi Zubizarreta

Auzo lotsa eragin dute epaileek. Edurne Elizondo

4 ***lehen auzo***

Eta Ezterenzubin, historialariaren sorterrian, **lehen auzo** ziren.. Berria - Kultura

Leku berdinean mahastizain bat biziki ongi moldatzen ahal da, eta bere **lehen auzoa** aldiz, biziki gaizki. Berria - Harian

Hor zen halaber elizako zutoin baten gibelean Etxarte komisarioa, eskolako lagun ohiari eta **lehen auzoari** azken agurraren erratera jina. Itxaro Borda

Cazenavetarren etxaldearen ondoan, egurrezko mainu txabola apal bat ezarri berria zeukan Caulet **lehen auzoak**. Txillardegi

Ber denboran, Hong Kong **lehen auzoa** hasi zen handitzen eta garatzen. Ramuntxo Etxeberri

Lehen auzoa, Eusebio. Eneko Bidegain

Lehen auzoen arteko partidak mereziko zuen baino jende gutiago erakarriz, 300 behari bakarrik. Herria

---

auzoalde ik **auzo**[1].

---

auzoarteko *izlag* elkarren inguruan bizi direnen artekoa.

Hiru gauza ditut bene-benetan gogoko, Jaunari eta gizakiei atsegin zaizkienak: senitarteko elkartasuna, **auzoarteko** adiskidetasuna, elkar ondo hartutako senar-emazteak. Elizen arteko biblia

---

auzoera *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* auzoa, auzo ingurua.

Kaltzakortak idatziak dira jakingarriok: "Markinako kaleartean egon beharrean, Barinagara, Eibarreko lurrekin muga egiten dauen Markinako **auzoera** jator batera joan zan". ETC-prentsa

---

auzogune *iz* auzoa, auzotegia. ik **auzune**.

Bulta huntan bazen eztabada frango Arbonan, Bidarteko juntan egiten ari duten **auzogune** berri baten gainetik. Herria

Bestak ere Urruñako Pausu **auzogunean** eta Ortzaizen, Ahaizmendi **auzogunean**. Herria

Hala, beren **auzogune** berezietan bildurik segitu zuten moro talderik bizkorrenek, beren merkatu, sineskera eta abarrekin. Patziku Perurena

---

auzokalte *iz* ingurukoen kaltetan aritzen dena.

Elkarrizketa lagin xume honetatik igarri ahal dugunez, dohain eta bertute handien jabe ziren gure alienigena aknedun haiek: ninfomanoak, txoriburuak, **auzokalteak**. Patxi Iturritegi

Oso oker, izugarri oker aritu zen fiskalari erantzuten, nire abokatu ergel hark atzamar pototsa goratzen zidan bitartean, garaitzen ari ginelakoan, **auzokalte** ez besteak. Koldo Izagirre

Ez, auzolanik ez; **auzokaltea** egin da hemen harrapazka. Patziku Perurena

---

auzokide 1 *iz* auzoa, auzo bereko pertsona. ik **auzolagun**.

Kalezuloa bidegabea zen bere **auzokideekin**: ez zituen sariztatzen eskaintzen zioten maitasunaren neurri egokian. Patxi Zubizarreta

Otsoa ere bi **auzokideren** besoetan eserita irten zen etxetik, zangoa oihaletan bilduta, zeinetatik belar eta hosto mutur batzuk azaltzen baitziren. Joanes Urkixo

Otsoa ere bi **auzokideren** besoetan eserita irten zen etxetik, zangoa oihaletan bilduta, zeinetatik belar eta hosto mutur batzuk azaltzen baitziren. Joanes Urkixo

Goiko solairuko **auzokideen** barre algarak entzuten dira. Xabier Paya

Esan ere esan nizun, **auzokideen** bilerara joan aurretik, dutxa azkar bat hartua nuela; eta, presagatik edo, prakak janzterakoan hain zuzen, hantxe geldituko zitzaidala, praka barruko azpilduraren batean trabaturik. Josetxo Azkona

Aurreko atalburuan deskribaturiko jipoiek astinduta, Don Kijotek Baldovinos dela pentsatuko du eta, **auzokide** batek jasotzen duenean, zaldunak Mantuako duketzat hartuko du **auzokidea**. Patxi Ezkiaga

Aurreko leihoan, lainoartean bezala, **auzokidearen** zilueta nabaritu dut bere gimnasia ariketak egiten, praka motzak daramatza bakarrik. Juan Martin Elexpuru

Marokotik heldu berri den **auzokidea**, arabez jantzita dago kalean elkar agurtzen dugunean? Iñigo Aranbarri

Auzokideekin ardo ozpindu bat edan eta autobusera abiatu zen. Unai Iturriaga

Gizon honen izaeraren indarra zelakoa zen jakin ahal izango da, gogoratzen badugu ze sentikorra zen **auzokideen** iritziarekiko: gizon honen edozein mugimenduk, orain, sorpresaz betetako arreta bereganatzen zuen Julen Gabiria

2 ***angelu auzokide*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Geometrian, plano batean, **angelu auzokideak** erpin bera duten eta alde komun bat duten bi angelu dira. ETC-entziklopedia

Printzipio geometriko honetan dago oinarrituta triangelatzea: triangelu baten alde bat (oinarri-lerroa) eta horren **angelu auzokideak** jakinez gero, beste bi aldeak eta falta den angelua kalkula ditzakegu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Argi moteleko gelako izkina horri **angelu auzokidea** deritzo, daukan gauzarik aldamenekoena delako, horretaz landa ez baitio ezeri erreparatzen ia-ia, ezta hainbeste ordu sartzen dituen oheari ere. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **auzokide bat** (7); **auzokide batek** (7); **auzokide batzuek** (3); **auzokide guztien** (3)
> **baina auzokideek** (3); **dute auzokideek** (3); **lagunek eta auzokideek** (3)
> **auzokideen artean** (3); **auzokideen kezka** (3)
> **hainbat auzokidek** (3)

---

auzokidetza *iz* elkarren auzo direnen nolakotasuna edo egoera. ik **auzotasun**.

Eñaut Etxamendi-k ere du, ezagutzen diogun talenduarekin, ekonomiaren **auzokidetzaren** baitezpadakotasuna azpimarratu, historian ta munduan gaindi egin eta egiten diren etsenplu interesgarri batzu aipatuz. Herria

Kaseta hau agertzean, jadanik iragana izanen da Leopold Darritchon-ek Donapaleuko Errecart ikastetxean, maiatzaren 23-an, egin duen mintzaldia ekonomian **auzokidetzaz**. Herria

Espainiaren proposamenaren arabera, Europako **Auzokidetza** Tresnaren % 3 bideratu beharko litzateke immigrazioaren kontrolera. Berria - Harian

---

auzoko 1 *iz* norbaitentzat, inguruko etxeren batean bizi den pertsona. ik **auzo**[2].

Osasunazale ugarik etorkizuneko izar bat **auzokoari** oparitu ziotenaren sentsazioa zuen, eta Mirandak Tikoren balizko zuhurkeriaz aditzera emandakoek ez zuten lagundu giroa baretzen. Berria - Kirola

Gauza bera itsasadarraren ondoan bizi ziren **auzokoen** artean. Paddy Rekalde

Auzokoek nahi dute, ba, egin egingo diagu, eta kito! Pablo Sastre

Eta orduan ezkerrak are sakonago egiten du dantzan tekla beltzen gainean, eta orduan **auzokoa** geratu egiten da, eta kaleaz bestaldean hortentsiek ikusten uzten ez duten leiho bat zabaltzen da. Alberto Barandiaren

-Deitu **auzokoei** -esan zuen emazteak. Koro Navarro

Beti iduritzen zaie jendeei **auzokoak** baino zuzenago doazela eta guri gure azpian direla iduritzen zaigun bezala, haiei kontrakoa zaie iduritzen, haiek gu garela haien azpian baitute uste. Aurelia Arkotxa

Eta zeukaten diru gehiena gastatu zuten unibertsitatean eta, nahikoa ez zela ikusi zutenean, josten hasi ziren **auzokoentzat**, eta gantxillo egiten, saltzeko. Unai Elorriaga

2 *izond/adlag* ingurukoa, ondokoa; kanpokoa, inorena.

Orduan, Jaunak Joramen kontra xaxatu zituen filistearrak eta etiopiarren **auzoko** diren arabiarrak. Elizen arteko biblia

Auzoko neskak konbentzitzeko ez genuen ezer egin behar, ostera! Edorta Jimenez

Gurpil-patinetan ibiltzen nintzen haren aurrean eta gogoan dut oraino ere harrapatu eta txirikordak moztu nahian nire atzetik korri egiten zuen **auzoko** haur txiki ile hori argi bat. Joxan Elosegi

Desmasia ikaragarri horiek ikustearekin **auzoko** erresumak izitu eta asaldatu ziren. Xipri Arbelbide

Auzoko ar guztiak atzetik segika dituela berehala. Mirentxu Larrañaga

Eta, are okerrago, damuaren **auzoko** den errudun-sentimena sortu bide dio bizidunak abandonatu beharrak, borondatez kontrako desertore, gogoz kontrako traidore

sentiarazi bide du. Imanol Zurutuza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
auzokoa da (6); **auzokoa zen** (3)
auzokoak baino (5); **auzokoak ere** (3); **auzokoak ez** (4); **auzokoak ziren** (3); **lagunak eta auzokoak** (3)
zien auzokoei (3)
auzokoek ez (5); **dute auzokoek** (3); **zioten auzokoek** (4); **zuten auzokoek** (7)
auzokoen artean (7)

---

auzolagun *iz* auzoa, auzo bereko pertsona. ik **auzokide**.

Auzolagunak horrelakoak balira, jakina, askoz ere eramangarriagoak lirateke herriko bizitza eta bakartasuna. Jose Morales

Auzolagunek eta udal agintariek salaketa eginda, Mauleko jendarmeak bikotearen bizitegira azaldu zirelarik, ez zieten atea ireki nahi izan. Berria - Euskal Herria

Alarguna zen, nik uste, eta batzuetan **auzolagunak** gonbidatzen zituen saloi handian txokolatea hartzera, hotza zetorrenean. Javi Cillero

Auzolagunak oso jatorrak dira, oso ongi nago. Berria - Kirola

---

auzolan *iz* auzokoen arteko elkarlana.

Auzolaneko besoen erdiak hantxe zeuden, zerbeza edo ardoa edanez. Jon Alonso

Ez, **auzolanik** ez; auzokaltea egin da hemen harrapazka. Patziku Perurena

Zenbait aldiz, dozena bat **auzolan** behar ditugu muntatu elgarren artean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oraindik herri nordiko batzuetan, etxe bakoitzaren aurrean, **auzolan** ederrean, maiatz-zuhaitz bana landatzen dute, bizi-espiritu hori erakartzeko. Pello Zabala

Hori zen Herri Urrats, gutxitan obratzen baina bakarretan **auzolanean** eraikitzen zen euskal elkartasun zabalaren Babel kuttuna. Itxaro Borda

Guk **auzolanen** batera joanda maiz ikusten genuen. Pako Aristi

Auzolanaren legea zen: gaur gu zuenean eta bihar zuek gurean. Xabier Etxabe

Aittitte eta beste bost ziren, auzokoak denak, haietako bi emakumeak, eurenak amaituta aittitterentzat **auzolanean**. Joseba Sarrionandia

Herritarrak **auzolanean** arituko ziren, noski, mende eta mendeetako tradizioak erakutsi bezala. Joan Mari Irigoien

Bestelako lana, izan ere, lan borondatezkoa, **auzolana**, hori ez baita batere exkax. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
auzolanean ari (3)
auzolanerako deia (3)

---

auzolandegi *iz* auzolanean egiteko antolaturiko ekintza edo jarduera, eskuarki gizarte alorrekoa, helburu nagusien artean elkarbizitza, tolerantzia, elkartasuna eta kideko gizarte balioak sustatzea dituena.

Auzolandegi hartako partaideak geratu ginen han: boluntario gindoazenak eta arduradunak. Xabier Mendiguren Elizegi

Izan ere, bost **auzolandegi** horietatik hirutan euskara izango da erabiliko den hizkuntza; beste bietan, berriz, euskara eta gaztelania. Berria - Euskal Herria

---

auzolotsa ik **auzo[2] 3**.

---

auzolur *iz* auzo lurra.

Arratsalde-ordu osoak igaro ohi zituen horrela, pipa erretzen, gora eta behera eta harantz eta honantz aspaldiko bidezidor eta **auzolur** zahar ezagunetatik, denak mukururaino beteak harako kanpaina haren kondairarekin, honako agintari honen bizitzarekin, olerki eta pasadizoekin, baita pertsonaiekin ere, pentsalari hau, soldadu hura; guztia bizkor eta argi; baina azkenean bidezidorrak, soroak, **auzolurrak**, intxaurrondo emankorrak eta hesi loratuak errepideko bihurgune urrun hartaraino eramaten zuten, eta bertan beti zalditik jaitsi, zuhaitz bati lotu, eta oinez jarraitzen zuen bakarrik. Anton Garikano

---

auzotar *iz* auzo berean bizi den pertsona; auzo bateko biztanlea.

Normala zen horrela gertatzea; Alcoleako herritar bakoitza atzerritar batengandik bezain bereizirik sentitzen zen bere **auzotarrarengandik**. Josu Zabaleta

Arriskutsua iruditzen zitzaien denei, eta hura kalean ibiltzeak urduri ipintzen zituen **auzotarrak**. Juan Kruz Igerabide

Karrikan barrena ikusita, **auzotarrak** marmarka eta irriñoka hasten diren horietakoa. Alberto Ladron Arana

Bukatu da denboragabetasunaren menia eta aurki beteko dira pisu guztiak **auzotarrez**. Xabier Mendiguren Elizegi

Urratsez urrats egin zuen eguzkiak zipriztinduriko espaloi-bidea, buruarekin han-hemenka gur eginez nola etxe-ezkaratzetan puntu egiten ari ziren **auzotarrei** hala ostargi-belarren lorategietan makurtuta artatsu zihardutenei ere. Mirentxu Larrañaga

Asteburu batean, alabaina, aiton-amonenera abiatu ziren **auzotarrak**, eta interferentziak ez ziren haiekin joan. Iban Zaldua

Iturribide kaleko gordeleku bat, **auzotar** batek etxekoentzat egina zena, airean joana zen. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
auzotar batek (4); **auzotar baten** (3)
alde zaharreko auzotarrek (3); **zuten auzotarrek** (3)
auzotarren artean (4); **auzotarren elkarteko** (3)

---

auzotartasun *(corpusean ez dago; ETCn **331** agerraldi)* **1** *iz* udal bateko erroldan izen emanda egotea.

Lurralde bertako zuzenbideak arautzen zituzten familia, **auzotartasuna** eta jabetza komunala. ETC-literatura, saiakera

Argi dio proiektuak: "Administrazio **auzotartasuna** EAEko edozein udalerritan duen pertsona orok eskubidea du etxebizitza duina, egokia eta iristeko modukoa edukitzeko". ETC-prentsa

1592.ean, Hiribildua bi aitzakiaz baliatzen saiatu zen Erregimenduan sartzeko murriztapenak areagotzeko asmoz: **auzotartasuna** eta gaitasun ekonomikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hortaz, Hiztegi Batuko bigarren itzuliak aurrera egin ahala, beste lege-testu batzuetan erabilitako hitzak egokitu dira (**auzotartasun**/auzotasun, naziokotasun/naziotasun). ETC-zientzia, zuzenbidea

Informazioa txartel bidez ematen da, zera islatuz: egintza-emailearen izen-abizenak, egoera zibila, **auzotartasuna**, notarioaren datuak, egintzaren zenbakia, egintza mota, lekua eta data. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eurak izan dira euskal izenak argitu dizkigutenak (bazkalekuak, fazeriak, iralekuak, kontzeju-jabaria, kanpoko **auzotartasunak** ...). ETC-zientzia, zuzenbidea

2 *auzotartasun zibil*

Foru lege honetako xedapenak bikote egonkorrei aplikatuko zaizkie bikote egonkorreko kideetako batek gutxienez Nafarroako **auzotartasun zibila** baldin badu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lotura puntu zibila **auzotartasun zibilaren** arabera erabakitzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Auzotartasun zibilak eratortzen du zuzenbide zibil erkidearen edo zuzenbide bereziaren nahiz foru-zuzenbidearen menpe egotea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Foru zibil honi dagokionez, Gipuzkoako lurralde historikoan **auzotartasun zibila** eskuratu duen oro da gipuzkoar. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

auzotasun 1 *iz* elkarren auzo direnen nolakotasuna edo egoera. ik **auzokidetza**.

Ezagutzen ditugu **auzotasun** hurbilegia ezin jasana dutenak. Herria

Rita maite nuen biziki eta hori bainoago, ezin asmatuko nukeen bizitzen haren **auzotasunik** gabe, haren hitzik eta ferekarik gabe, haren arnasarik gabe, haren babesik gabe. Hasier Etxeberria

2 *iz* udalerri jakin bateko erroldan egoteak sortzen duen nolakotasuna eta egoera.

Hamabi urteko **auzotasuna** zeukala ageri da, baina ez dugu aurkitu 1905ekoan. Koldo Izagirre

Euskal herritartasuna dagokie Euskadiko Erkidegoko udalerrietakoren batean **auzotasuna** duten pertsona guztiei. Berria - Euskal Herria

---

auzotegi 1 *iz* herri batean, kaletik bereizirik dagoen etxe multzoa. ik **auzo**[1]; **auzune**.

Bere **auzotegira** itzuli zen gautu ondoan, baina ez zen etxeratu. Elena Touyarou

Herriko **auzotegi** pollitenetarik bat, saratar zaharrek hautatu dute, beren urteko biltzar goxoaren gauzatzeko. Herria

Berlingo kanpo-**auzotegietan** edo alboherrietan zehar astiro egiten du trenak. Edorta Jimenez

Auzotegi txiroen eraberritze plana indartuko dute . Berria - Harian

2 *kanpo auzotegi*

Berlingo **kanpo-auzotegietan** edo alboherrietan zehar astiro egiten du trenak. Edorta Jimenez

---

auzune 1 *iz* auzoa, auzotegia.

Auzuneko kronika biziduna zen, batez ere albiste zorigaiztokoena, eta eskandaluetan trebatua zegoen. Patxi Zubizarreta

Dena den, **auzuneko** bizilagunek ez zuten etxetik irten behar izan. Berria - Euskal Herria

Eguarte batean hartu zuten posizioa, eta ama besarkatzeko aukera izan omen zuen, baina atzera karlistak egin ziren **auzuneko** jabe, eta **auzunea** zaintzen duten hiru muinoen aldera joan behar izan zuten berek ihesi. Inazio Mujika Iraola

Ostera ere **auzuneko** erdialdera itzuli zen, eta lehen ibilitako kale nagusitik buelta egin zuen autobusaren geltokiraino. Joxemari Iturralde

Gobernuak diruz laguntzen dituen supermerkatuak ere zabaldu dira **auzune** pobreenetan. Berria - Ekonomia

Hiriko azken **auzunea** zeharkatu genuen, eta eukalipto sail batean gelditu zenuen taxia. Josetxo Azkona

Behe-**auzunetan** beste arrangura bat hedatzen ari zen. Juan Garzia

Kezkatuta daude berak eta kezkatuta gaude **auzuneetako**, hirietako, herrietako guzti-guztiok. Bernardo Atxaga

Gizona eskaileretan behera doa, bere **auzunetik** hirigunera. Pedro Alberdi

Kolpeak eta garrasiak **auzuneko** azken etxeetan ere entzun zituzten. Alberto Barandiaren

2 *behe auzune*

Behe-auzunetan beste arrangura bat hedatzen ari zen. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **auzune bat** (5); **auzune batean** (10); **auzune baten** (4); **auzune batzuetan** (4); **auzune berria** (4); **auzune berriko** (4); **auzune hartan** (4); **auzune honetan** (3); **auzune horietako** (4); **auzune horretan** (3); **auzune osoak** (3); **auzune pobre** (5); **auzune xiita** (3); **auzune xiitan ere** (3); **bagdadeko auzune** (4); **city auzune xiitan** (8); **diren auzune** (3); **hiriburuko auzune** (4); **hiriko auzune** (3); **sadr city auzune** (8)
>
> **auzunean bizi** (4); **auzunean izan zen** (5); **auzunean kokatutako** (3); **sadr city auzunean** (4)
>
> **arrantzaleen auzuneko** (3); **auzuneko merkatu** (4); **auzuneko polizia** (3); **ziren auzuneko** (4)
>
> **hainbat auzuneren** (3)
>
> **hainbat auzunetan** (4)
>
> **sultan auzunetik** (3)

---

average 1 *iz* batez bestekoa, eskuarki kirol sailkapenetan aintzat hartu izan ohi dena.

Normandiakoak bosgarren sailkatu ziren Hormadiren multzoan, Toursekin ados eginda, baina **average** okerragoa zuenez, aspaldiko kolperik handiena hartu zuten. arakaldok puntu batera du orain Arrate (gol-**average** hobea dute gainera), eta Valentzia bi puntura (azken jardunaldian bisita egingo diote). Berria - Kirola

2 *gol-average*

Portlandek bost goleko aldeaz irabazi beharko luke, Ademarri **gol-average-an** irabazteko. Berria - Kirola

Barakaldok puntu batera du orain Arrate (**gol-average** hobea dute gainera), eta Valentzia bi puntura (azken jardunaldian bisita egingo diote). Berria - Kirola

Bi taldeok berdinduta daude orain lidergoan, baina madrildarrek **gol-average-a** dute alde. Berria - Kirola

---

avestera *(corpusean ez dago; ETCn **17** agerraldi)* *iz* antzinatean Persian mintzatzen zen hizkuntza.

Avestera ekialdeko Iraniar hizkuntzak iraniar hizkuntza da, egun bakarrik zoroastrismok eliz-hizkuntza moduan erabiltzen duena. ETC-entziklopedia

Avesta, antzinako Persiako testu sakratu bilduma bat da, zoroastrismo izeneko erlijioarenak eta **avesteraz** idatzita. ETC-entziklopedia

Ahura Mazda edo Ormuz, Zoroastrok, sortu gabeko Sortzailetzat, hau da, jainkoa bezala goraipatutako jainko baten **avesterazko** izena da. ETC-entziklopedia

Avesteraren senidea, epeka pehleviera edo Erdi Aroko persiera bilakatu zen. ETC-entziklopedia

Iraniar hizkuntzak: persiera, kurduera, **avestera** (K.a. 1000. urte ingurukoa), antzinako persiera eta pehleviera. ETC-entziklopedia

Avesteraren senide estua, ezagutzen dugun indoirandar hizkuntzarik zaharrena da. ETC-entziklopedia

Oharra: 8. elementua **avesterakoa** (persiera zaharraren hizkuntza ahizpa bat) da; hala ere, kasu honetan ez hartu aintzat arauak idaztean. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

avestiko *iz* ekialdeko iraniar hizkuntza, egun bakarrik zoroastrismoak eliza-hizkuntza moduan erabiltzen duena.

Bere pahlavi aldaeraren moldaera **avestikoan** zoroastroar elizaren liburu sakratuak jaso zituen. Iñaki Mendiguren

---

axal 1 *iz adkor* azala.

Erreketak, lehorteak, lur **axala** eurien eta haizeen mende uzten dute: hautsak eta lur-hondarrak erreka eta ibaietara doaz, aitaren batean. Pello Zabala

Zinezko gauzak **axalez** itxuraldatzen eta apaintzen, haurttoak bezala libertitzen ziren. Patziku Perurena

Gai hau ez da **axaletik** hartzeko kontua, bere ustez. Eneko Bidegain

Jende berria ezagutzen du, **axaletik**, baina ez daki nola hitz egin haiekin, eta oso lagun edo ezagun gutxi ditu, familiatik eta Hewson familiatik kanpo. Xabier Olarra

Irakurtzen egona zen bere gelan, eta orain jaitsi eta dena ergela, **axala**, belaxka iruditzen zitzaion. Anton Garikano

Dena den, larru-**axala** oraindik nahiko beltzaran daukat; lepoaldea bakarrik zurbil xamar. Joxe Austin Arrieta

Orain **axaleko** laztan horiek ez naute asetzen, eta ustez serioak diren solasek ere ez. Josu Zabaleta

Batzuetan gehiago kostatzen da **axaleko** bi hitz alferrikako esatea, besteetan diskurtso mamitsu oso bat baino. Hasier Etxeberria

2 ***axaleko*** *izond adkor*

Ez ote ziren grekoak optimista eta **axaleko** bilakatu, eta mundua arrazoiz eta logikaz menderatu zale, aldi berean alaiago eta zientziazaleago, ahultzen, eskasten eta zahartzen hasi zirenean? Iñaki Segurola

Grina natural baina ezbeharrak, nolabait esan, **axaleko** itxurak sortzen dituenak lirateke, nahiz gure zentzuetara atseginak izan, gure biziari funtsean eusteko beharrezko ez direnak. Patziku Perurena

Axaleko jarduna da hedabideena: mamirik ez da inon ageri.Eta bere burua apur bat sosegatzeko, behin-behineko bakea, badarik ere, izan zezan, **axaleko** arrazoiren bat aurkitu nahi izan zuen, nolabaiteko gezur errukarri bat; nora jo, bada, arrazoi bila? Joxerra Garzia

Izan ere, horrelakoei erreparatu ahal izateko, hizkuntzetako baten ezagutza **axal-axalekoa** behar baitu izan, eta guk, Hegoaldeko euskaldunok, aitortu zein ez, hezur-mamietaraino sartuta daukagu Cervantesen hizkuntza. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diska axal** (4)
> **axaleko gipuzkoa** (3); **da axaleko** (3)
> **axalekoa da** (5)
> **axaletik bederen** (3)

---

axalekotasun *iz adkor* azalekotasuna.

Baina, lobulu frontalen galerak eta amnesiak eragindako **axalekotasunaren** gainetik, ba ote zen Greg sakonagoko bat gaixotasunaren azpian? Xabier Olarra

Garaion behin-behinekotasun hori, **axalekotasun** hori, iraun-nahi-ez hori bermatuko zion bidea behar zuen, jakina: gauzengan doi-doi erantsi, eta, erantsitako lekutik atzera berriz kentzean, gauzengan inolako arrastorik utziko ez zuena. Joxerra Garzia

---

axalgain *iz adkor* azalgaina.

Berdin gutxi ahal da historia serioski esplikatu, horren gorabeherak monarkia, eliza, eta abarren pentsa eta jokaeren **axalgainean** soilik aztertuz (horixe da Ortega-k bere aurreko interpretazio guztiei egin dien kritika). Joxe Azurmendi

---

axalkeria *iz adkor* azalkeria.

Baina, zenbat eta gehiago ohitu Errusiarekin, mendebaldartzen ari ziren herri ez-errusiar haiek, orduan eta biziago ohartzen ziren petritar Errusiaren Mendebaldeko bernizaren **axalkeriaz**. Iñaki Mendiguren

Gero, pentsatzen jarrita (ez dakit noizkoa den gero hori: trenean bertan, gure elkarrizketaren ondoko isiltasunean, trenetik jaitsita etxera iritsi nintzenean, handik urteetara hartaz oroitzean...), pentsatzen jarrita, diot, lotsaturik sentitzen naiz, neure snobismoaz, neure **axalkeriaz**, neure moderno izan nahi barregarri hartaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Beharbada hizkuntza bidezko sorkuntzarekiko kezkagatik izan liteke, bertsoetan ugariago izaten baita topikoa, sarriago **axalkeria**, bat-batean jardun beharraren ezinbesteko makurrak. Andoni Egaña

Batak besteaz ez genekiena **axalkeriak** ziren, aipatzea ere merezi ez zutenak; karrerak, eta halakoak. Joxe Austin Arrieta

---

axalpe *iz adkor* azalpea.

Axal batean edo gehienaz ere **axalpe** batean aztarrika ibiltzea besterik ez dut egingo arnasa neurekin dudaino. Iñaki Segurola

Hitz horren **axalpean**, nolako mamia ezartzen den, hori da haatik ikusi behar! Herria

---

axanpa *iz* oinazearen edo sufrimenduaren neurriz kanpoko adierazpena.

Halere, erlatibismoaren aurkako **axanpa** eta teatro guztiek ez diote "espirituaren komediari" baino deus besteri laguntzen. Joxe Azurmendi

Sandia junturetako oinazez dabilela eta: "Min gutxi eta **axanpa** asko". Gotzon Garate

---

axarka *adlag*

Gorantz hasi naiz ostera, **axarka** kafazka uztarrika, sator baten moduan, lurra jan ere egiten dudala, gorantz, gorantz, askatasunerantz, libertatea beso zabalik daukadan presondegiaren patiorantz. Koldo Izagirre

---

axatu ik **haizatu**; **xaxatu**.

---

axedrez *iz* xakea.

Manhattango irla **axedrez** erraldoi bat bezalakoa da. Harkaitz Cano

axekatu *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)* *izond* xaxatua.

Alde **axekatuan** gorritasuna. ETC-entziklopedia

axeri *iz adkor* azeria.

-Ene, Nathan -esan zuen Marinak-, benetan zara gero **axeri** zahar bat. Oskar Arana

Esan bai **axeri** kastako hark basoko jauregian lo zegoela printzesa, eta hura esnatzen zenean, ez lehenago, izango zela basoa gurea. Felipe Juaristi

Giovanni, hik gutxi gozatzen duk, **axeriago** izan behar duk, eta gehiago gozatu, bagara edo ez gara? Fernando Rey

-Sorpresa izan da, gaurkoan hogei minutuz bakarrik berandutu zarelako -eta Liviari bere betiko **axeri** irribarrea atera zitzaion aurpegira. Joxemari Iturralde

axertar *iz* Bibliako pertsonaia den Axerren leinukoa.

Hori izan zen **axertarren** ondarea, senitarteka banatua, aipaturiko hiri eta herrixkak barne. Elizen arteko biblia

axial 1 *iz* ardatzari dagokiona.

Ornoen deskonpresio **axialerako** mahaia da gailuaren izena. Berria - Gaiak

2 *eskeleto axial* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Hezur hauek luzetarako ardatz batean antolatuta daude, **eskeleto axial** edo ardatz-hezurdura (gorputzaren erdialdean), non eskeleto apendikular edo gorputz-adarretako hezurdura lotzen den. ETC-entziklopedia

3 *inklinazio axial* *(corpusean ez dago; ETCn 2 agerraldi)*

Ekliptikoaren perpendikularrarekiko **inklinazio axial** gutxi edo eza baldin badago, ez da urtarorik egongo eta, ondorioz, biosferaren dinamikaren funtsezko eragingarri bat desagertu egingo da. ETC-entziklopedia

4 *makurdura axial* *(corpusean ez dago; ETCn 9 agerraldi)*

Martek Lurraren antzeko orbita izango balu, urtaroak Lurrekoen antzekoak izango lirateke, bere **Makurdura axial** edo okerdura Lurrarenaren antzekoa baita. ETC-entziklopedia

Makurdura axial edo ekliptikaren zeihartasuna zeru-ekuatorearekiko, gutxi gora-behera, 23,5ºkoa da, eta, lehen aldiz, Eratostenes astronomoak neurtu zuen K. a. III. mendean eta 23º 51' 19"ko balioa lortu zuen. ETC-entziklopedia

Eratostenesen **makurdura axial** edo ekliptikaren zeihartasuna hobetu zuen. ETC-entziklopedia

20 urte baino laburragoak diren orbita-periodoak eta **makurdura axial** txikia duten orbitak dituzten kometak (30º baino gutxiago) Jupiterren familiako kometak dira. ETC-entziklopedia

5 *ordenadore bidezko tomografia axial* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Han egin zioten **Ordenadore Bidezko Tomografia Axiala**, baita ebakuntza ere. ETC-prentsa

6 *ordenagailu bidezko tomografia axial* *(corpusean ez dago; ETCn 55 agerraldi)*

Ordenagailu bidezko Tomografia Axiala (OTA) edo Eskanerra (Ingelesez "Computed Axial Tomography" edo CT, frantsesez "Tomodensitométrie" edo TDM eta gaztelaniaz "Tomografía Axial Computerizada" edo TAC) proba osagarri erradiologikoa da, irudi ugari ordenagailuaren bidez prozesatzen dituena. ETC-entziklopedia

Ordenagailu Bidezko Tomografia Axiala egin behar zioten. ETC-prentsa

Diagnostikorako beste probak izan daitezke: odol analisia, tiroide hormonaren maila, **ordenagailu bidezko tomografia axiala** (OTA), elektroentzefalograma (EEG), lo ereduaren azterketa Lo Unitateren batean eta gernu analisia. ETC-prentsa

Osasun etxeak eskainiko dituen berrikuntzen artean, ekografoa eta OTA **ordenagailu bidezko tomografia axialaren** proba egiteko makina nabarmendu behar dira. ETC-prentsa

Eskanerrak - **ordenagailu bidezko tomografia axiala** edo OTA esaten zaio euskaraz proba horri- gero eta gehiago erabiltzen dira osasun publikoan, eta proba horien artean, hirutik bat alferrikakoa izan daitekeela kalkulatzen dute adituek. ETC-prentsa

EMI teknika oso lagungarria da OTA (**ordenagailu bidezko tomografia axiala**) delakoaz, eskanerraz eta X izpiez ikus ezin daitezkeen anormaltasunak detektatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horietako bat, **ordenagailu bidezko tomografia axiala** deitzen da, OTA labur esanda, edo eskanerra, gehienetan esaten den moduan. ETC-zientzia, zuzenbidea

axinita *(corpusean ez dago; ETCn 12 agerraldi)* *iz* azido borikoz, silizez eta aluminaz osaturiko mineral distiratsua.

Axinita (Mg) silikato mineralak silikato motako minerala da eta axinite taldearen kidea da. ETC-entziklopedia

Tinzenita silikato mineralak silikato motako minerala da eta **axinita** taldearen kidea da. ETC-entziklopedia

axio *iz adkor* akzioa.

Bi gaiztagin ez hain buruargi eta beren **axio**-lagun ezezaguna. Oskar Arana

axioma 1 *iz* zientzia edo dedukzio-sistema baten oinarrian ezartzen den printzipio edo hipotesia.

Gauza berriak topatzeko eta ikertzeko **axiomari** eutsi zion bere bizitza osoan. Berria - Kultura

Matematikaren oinarrizkotasuna definizio, **axioma** eta demostrazioetan funtsatzen da. Ibon Uribarri

Gehiago oraino, guztiek **axiomatzat** har lezakete proposizio hori eta egia komunen lerroan sar. Piarres Xarriton

Gauzatxo bat esan nahi diat, hala ere, Arkimedesen **axiomari** buruz, hark eman baitik indar hori. Jon Muñoz

Nik ez diot salbuespen bakar bat ere aurkitzen **axioma** orokor honi: hiritar orok jakin behar du noiz den errudun eta noiz errugabe. Juan Martin Elexpuru

2 *Peanoren axioma* *(corpusean ez dago; ETCn 3 agerraldi)*

Esate baterako, **Peanoren axiomak** adibide ona dira, aritmetika osoa oinarritzen dutelarik, eta beraz, matematikaren beste zati batzuk. ETC-entziklopedia

Erlazio aljebrak ezin du hiru baino gehiagoko sakonerako zenbatzaileak dituen formularik irudikatu. Harrigarriro, erlazio aljebraren ereduaren barruan Multzo-teoria eta **Peanoren axiomak** daude. ETC-entziklopedia

axiomatika *(corpusean ez dago; ETCn 18 agerraldi)* 1 *iz* axiomen multzoa.

Ene ustez, zehaztapen hori ez zegoen erabat argi harik eta "**axiomatika**" deritzon matematikaren formulazioa iritsi zen arte. ETC-literatura, saiakera

Multzoen **axiomatikak** aniztasunaren ontologian duen bezainbesteko garrantzia du egitura horrek agerpenaren logikan. ETC-literatura, saiakera

Esan bezala, mitologiak aldaketa hauen inguruan argia ematen digu maiz, bai **axiomatika** bai erresistentziaren aldetik, irabazlea eta galtzailearen eskutik, gehienetan irabazlearen ikuspuntua gailendu delarik. ETC-literatura, saiakera

Andrei Kolmogorov matematikoak probabilitate teoriaren **axiomatika** azaldu zuen 1933. urtean eta horri esker prozesu estokastikoen teoria garatzen da XX. mendean zehar, egun zientziaren arlo anitzetan, ekonomian eta meteorologian esaterako, erabiltzen dena. ETC-entziklopedia

2 *probabilitatearen axiomatika* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Probabilitatearen axiomatika gertakizun zenbaiten gainean definituriko funtzio bat gertakizun horiei buruzko probabilitateak modu konsistentean definitzen dituen axiomen multzoa da. ETC-entziklopedia

---

axiomatiko 1 *iz* axioma baten arabera egindakoa.

Gainerakoetan, idazle batek aipuarekin batera aipugilea ere izen eta guzti aitortzen duenetan, **axiomatikoa** da legea: idazleak on du aipatutakoaren itzala, bai hark esandakoa hobetu ezin duelako, bai haren itzalak babestu egiten duelako ere. Anjel Lertxundi

Sistema formala **axiomatikoa** edo naturala izan daiteke. Askoren artean

Geroxeago, unibertsitateko egun aspergabeetaraino hegaldatu zen ustekabean, eta ohartu bere bizitzaren hastapen **axiomatiko** eta proposizio esistentzial osagabeak izen bat zeukala, eta izen hori zen Ur De la Piscina. Iñaki Segurola

2 *teoria axiomatiko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Eta matematikan multzoen **teoria axiomatikoa** da daukagun teoria bakarra, zeinaren bidez posible zaigun koherenteki aniztasun inkoherentea pentsatzea. ETC-literatura, saiakera

Dirichleten integrala eta energiaren kontzeptuak erabiliz, **teoria axiomatiko** orokor bat osatu zuen, funtzio konplexuetarako Dirichleten espazioen teoria. ETC-entziklopedia

---

axis *(corpusean ez dago; ETCn **147** agerraldi)* 1 *iz* lepoko bigarren ornoa.

Buruaren mugimenduak mugatuak dira baina atlas eta **axis** hezurren eta lepahezurren bidez, atzera, gibelera ezin badugu begiratu, ezker-eskuin burua ingura dezakegu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Teorian, zigortuaren heriotza bizkarrezurreko atlas gaineko **axis** ornoaren apofisi odontoideen luxazioaren ondorioz dator, horrek garunaren koma egoera eta heriotza eragin behar luke, baina praktikan heriotza asko laringeko kalteen ondoriozko itoketarengatik datoz. ETC-entziklopedia

Gizakiongan zazpi daude: C1 (atlas), C2 (**axis**), C3, C4, C5, C6 eta C7 goitik behera izendatuta. ETC-entziklopedia

Lehen eta bigarren ornoak ("atlas" eta " **axis** ") izan ezik, "orno mugikorrek" (goi eskualdekoek) antzeko egitura aurkezten dute. ETC-entziklopedia

2 *axis mundi*

-Ulertzen juat **axis mundi** , munduaren ardatza esan nahi jok, baina zer da onfalos? -galdetu du Xankapok. ETC-literatura, saiakera

Ez hori bakarrik, zuhaitz bilakatuko da Martzelina, **axis mundiren** sinboloa: infernuak, lurrak eta zeruak elkartuko dituen sinboloa (M. ETC-literatura, saiakera

Erdian zeukan zutoina ez zen baitezpada ederra, baina autoak, motoak eta autobusak haren inguruan txirikordatzen ziren alaiki, benetako **axis mundi** bailitzan. ETC-literatura, saiakera

Eta agertzen da tribu baten egunerokotasuna, familia sarea, amodioa, denbora karakoil maskor moduan garatuz eta Yarrawarnura itsasoa **axis mundi** antzera irudikatuz. ETC-prentsa

Konparazionera, ama presente dauka (Gogoan eta Amaren irria), eta alabari (**Axis mundi** , Ainararentzat) zuzentzen zaio. ETC-prentsa

Matraka sakratu batek, Luma Zimurren Kalabazak, komunitatea babesten du eta **axis mundi** gisa balio du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eraikitzen hasi zirenetik, hiriaren zaindari sinbolikoak **axis mundi** sakratutzat hartu zuen, eta hortaz, zeremoniarako toki hura hiriaren erdian eta, beraz, unibertsoaren erdian, kokatu zuten. ETC-entziklopedia

---

axit *iz* arina. ik **aisit**.

85 urte zituen, gizon **axita** bazen ere. Herria

Ez sobera pisua, **axita** , pollita, zuzena, lagunek ez ziezaioten erran, errabiarazteko: "Hea! Arrunt makurra duk hire makila!". Michel Oronoz

---

axkar 1 *izond/adlag adkor* azkarra.

Zenbat aldiz aditua ote naiz, gauzak **axkar** edo motel egite kontu horretan. Patziku Perurena

Axkar -usteko tonto asko bizi da xiudadeetan, eta tristea da hori oso, zeren xiudadeko tontoa izatea baino gauza tristeagorik ez baitago, garai bateko baserrietako seme tontoa edo alaba zanpana izatea ez bada. Iñaki Segurola

"Erbia baino **axkarragoa** haiz", esaten baitzion Eduk. Joan Mari Irigoien

Ohitura bihurtu zen eskolen ondotik ikasgelan gelditzea, elkarrekin solasean, eta nik jaio aurretik ere banekizkien trikimailuak erabiltzen nituen harekin, besotik hartzen nuen eta eskua kentzen **axkar** eta maltzur. Karlos Zabala

-Xu bai nini **axkarra** ! Maittea, erran aio berriz Joanesi, aio! Aingeru Epaltza

2 axkar-axkar

Nire egoteko moduan ere ez zen lotsagabekeriarik, bat-batean halako salbuespen **axkar-axkar** batzuk egiten banituen ere, errezeloz egon zedin eta ondo zer pentsatu jakin ez zezan, beste helbururik gabe. Karlos Zabala

Orduan toki guztietan zabaltzen dira gauzak eta gauza horiek dira, bi puntu: jatekoa, dena merke merkea eta **axkar axkar** , lantegiak, dirua, aspirinak, kamio luze luzeak, ordenadoreak eta pistolak jolasean ibiltzeko eta globoak ere bai [...]. Iñaki Segurola

---

axkarkeria 1 *iz adkor* azkarkeria.

Gaur ezin aurkez liteke artelanik, ezin salba liteke, hots, ezin sal liteke inolako moduz titulu **axkarkeriazko** bat gabe, esplikazio lehor, ulergaitz, hermeneutiko, enigmatiko eta transgresibo bat gabe, egileak badela eta badakiela erakusten duen zera hori gabe. Iñaki Segurola

---

axkartu, axkar(tu), axkartzen *ad adkor* azkartu.

Arratsetik ere, beste bi astetan, eguneko minutua **axkartuko** da. Pello Zabala

Epelari, beroari, eguzkitsuari... horri zioten beldur, landare eta fruituondoak aztoratzen eta **axkartzen** baitzituen. Pello Zabala

---

axo[1] *iz* antxume emea.

Axoa eta zikiroa, usaian bezala zerbitzatuak ziren eta guzien gustukoak izan dira aldi bat gehiago. Herria

Bazkaltiarrek gozatu dituzte ederki prestatuak ziren **axoa** eta zikiroa. Herria

---

axo[2] *iz* haragi xehatuarekin eta Ezpeletako piperrarekin prestatzen den jakia.

Axoa denentzat ausarki! eta zoin ona! Herria

Igandean, maiatzak 2, besta herrikoia Urruñako plazan **axoa** prestatzaileen lehiaketarekin. Herria

Oren bakotxean bazkaria date xapito pean (sartzeak, **axoa** -irrixa, bixkotx, kafe). Herria

---

axoi *iz* neuronaren luzakina, nerbio seinaleak igortzen dituena.

Axoia ez da beti beste nerbio-zelula bati konektaturik ego-ten; batzuetan, muskulu bati konektaturik egoten da. Irene Aldasoro

Hain zuzen ere, bikoiztez bikoizte eratu dira, besteak beste, hemoglobinen moduko gene-familia asko, hainbat erregulazio-eragile eta immunoglobulinaren familiako geneak, zeinek antzeko eginkizunak baitituzte, hala nola antigenoak ezagutzea, zelulak itsastea edo **axoiak** gidatzea. Juan Garzia

---

axola 1 *iz* zerbaitetan jartzen den ardura edo arreta.

Euskal presoez **axola** handia dauka Gattik. Berria - Kultura

Hain beharrezkoa zen Ameriketako Euskaldunen obra horren suntsitzeak ere ez du itxurarik, bere artaldearen **axola** poxi bat duen artzain baten aldetik. Xipri Arbelbide

Axola gabezia larria erakusten zuen irri lakoniko batez ihardetsi nien: esku hutsik dabilen autoktono bat baizik ez naiz. Itxaro Borda

Ez du horrek erran nahi komentuko arrangurez eta beharrez ez zuela **axola** handirik hartu. Piarres Xarriton

Axola handiz zaindu zituen aita-amaginarrebak bere zahartzaroan, eta Ekbatanan ehortzi zituen. Jose Antonio Mujika

Komunikabideek, berrien irudi eta abailari loturik, gero eta **axola** gehiago dute egiaren saihets desberdinez. Jose Angel Irigaray

Bere adineko haurrak eskolara doazen bitartean bere aurreneko **axola** urdaila betetzea da. Gotzon Garate

2 *iz* garrantzia, gorabehera.

Arrastorik ere ez neukan nortzuk ote nituen auzoko, ezta **axola** ere. Oskar Arana

Eta **axola** gutxi semeak galdu dituen amari zer uste duten jakintsuek ongiaz eta zer gaizkiaz. Felipe Juaristi

Axola gutxi nor den gure maitea, hura maitatzeak berak ematen digu argi-ikuspena. Matías Múgica

Eternitateak gisa batez denboraz **axola** guti zeukan. Piarres Aintziart

Hain **axola** handikoa da haziak haziekin egoki nahastea era ernalgarrian, lodiak arinekin eta arinak lodiekin bat eginez. Xabier Amuriza

Zer **axola** gaurkoa galduta ere? -erantzun dio ahizpak. Arantxa Iturbe

Axola handiko kontua zaionez, lehen esaldi tik txunditu nahiko du mutila. Joxerra Garzia

Zer **axola** ! erantzungo du norbaitek, eta ez diogu deblauki arrazoirik kenduko. Iñaki Arranz

3 ***axola hartu*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Gastu guziak bere gain hartzen zituen, harmairua behar den bezala ezartzen, menaiako **axola hartzen** ; baina, merkaturatekoa etxezainari eman behar baldin bazen, bulego-mutilak egiten zuen, bazarraikala, kolegioan bezala, bere gerizatzale eta gehiengoa. ETC-literatura, saiakera

[...] erne aditu zuen, **axola hartu** zuen gure situazioaz, lana behar bagenuen, esan zigun, orain haran mendi haietan lantegi haundi batzuk, errepide bat, konplejo turistiko bat iten ari zirela [...] ETC-literatura, saiakera

Afrikarrak, trukean ezer emateke badu, larritu edo **axola hartu** gabe, helatu bat, edo boligrafo bat, edo, agian, txikito bat hartzea. ETC-literatura, saiakera

Joan den urtean leku eskasez ez ginuen gauzatu hori baina, aurten Lota zolan libratu den leku bat baliatuko baitugu, euskararen eta didaktikaren **axola hartuko** duen langile bat izanen dugu Ikas-en. ETC-prentsa

Errusiaz **axola hartzea** izan da urteotako nire eginbide nagusia, eta horretan jarduteko asmotan naiz. ETC-prentsa

Alabaina, egungo krisiak, munduko herrialde guztietako agintarien **axola hartzea** behartzen duela nabarmenduta, FAOko buruak uste du estatu aberatsenek handizki hazi beharko dutela herri pobreenen aldeko laguntza. ETC-prentsa

4 ***axola izan***[1] zaio *ad* (nor marka 3. pertsona singularrean) garrantzia eman.

Azaldu nion seguruenik hilik egongo nintzela urtea amaitu baino lehen, eta bost **axola** zitzaizkidala proiektuak. Oskar Arana

Beste biei, amari eta Konradi, piano aurrean eserirk, bost **axola** zitzaizkien arriskuak. Xabier Olarra

Edozein gauza gertatuta ere, ez zait **axola** . Gotzon Garate

Gehiegi **axola** ez bazaizu, zatoz pare bat ordutara. Jasone Osoro

Baina inori zer **axola** zaio zure zentzugabekeria? Joan Mari Lekuona

Zer **axola** zait aukeratzen ez banauzu ere, nik zu aukeratu baitzaitut jada? Joan Mari Irigoien

Axola ez bazaizu, agonia behar baino gehiago luzatu dela idatziko dut. Koldo Izagirre

5 ***axola izan***[2] dio *ad* (nor marka 3. pertsona singularrean) garrantzia eman.

-Ez dio **axola** , Rory. Oskar Arana

Ez zuen ez nekien konturik esan, eta, funtsean, bat nentorren originalak bailiran aditzera ematen zituen iritziekin: bost **axola** diola gure gorpuzkiekin zer egiten duten, haien patu ezinbestekoa errauts bilakatzea denez. Ramon Saizarbitoria

-Bai, eta horrek zer **axola** dio? Pello Lizarralde

Nire egoeran, arrisku bat gehiagok edo gutxiagok ez zion **axola** . Joseba Urteaga

Baina, bihotzaren barren-barrenean, bazekien **axola** ziola. Xabier Aranburu

6 ***axola izan***[3] du *ad* (nor marka 3. pertsona singularrean) garrantzia izan. ik**axola 2**.

-Beste hau duk **axola** duena: nik ez diat traturik egiten munduarekin, ez nabilek tratu-tirabiran inola ere nik ezagutu dudan eta nire bizitzatik kanpo utzi dudan munduarekin. Xabier Olarra

AEBek dute boterea, ez du **axola** gobernurik dagoen Hain beharrezkoa zen Ameriketako Euskaldunen obra horren suntsitzeak ere ez du itxurarik, bere artaldearen **axola** poxi bat duen artzain baten aldetik. Berria - Harian

Segur, nihauren biziaz behar nuela haatik **axola** , ez baitezpada burasoek gustukoena ukanen zuten bidetik ibiliz. Janbattitt Dirassar

7 ***axolazko*** *izond* garrantzizkoa.

Ulertzen al duzu dagoeneko zein **axolazkoa** den gauzen lehenkiak zer ordenatan kokaturik dagozen eta zeintzuekin nahasturik sortzen eta hartzen dituzten mugimenduak? Xabier Amuriza

Terminologiaz ari garela, **axolazkoa** da gogoratzea hotsen ahoskera ez dela ahoan bakarrik gertatzen. Lourdes Oñederra

8 ***bortz axola***

Zure bizia pasa dezakezu, konberti eta konberti, harat itzul eta hunat itzul... edo apezaren errana **bortz axola** zaizula, konbertitze hori atxikiko duzu azken mementorako,

biziaren ondoan pasatzeko irrixkuan... nun ez zaizun Axular-en Gero famatua esku artera etortzen. Herria

Baina **bortz axola** hiri uholdea eta uholdetik libratu zen arka, arkak zeraman erbi bikoteagatik ez balitz, ezta? Joan Mari Irigoien

9 *bost axola*

Arratsaldean ibiltokirako, sekula baino berantago etorri ziren ene xeka... bost **axola** eni. Filipe Bidart

Bost **axola** zitzaien niri gertatzen zitzaidana. Berria - Mundua

Bob artzainak kristaua dela dio, baina ez du inoiz esaten zer motatakoa, eta ez dakit ezta ez ote zaion erlijioa bost **axola** ere. Oskar Arana

Beste biei, amari eta Konradi, piano aurrean eserirk, bost **axola** zitzaizkien arriskuak. Xabier Olarra

Berdin zitzaidala erantzun nion noski; bost **axola** zitzaidala nora joan, berarekin joaten banintzen. Ramon Saizarbitoria

Beraz, bost **axola** berriro han ikusten bazaitut, bost **axola** errugabe bazara ere, benetan. Migel Angel Mintegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **apenas axola** (3)
>
> **axola al dizu** (6); **axola al zaizu** (8); **axola behar** (5); **axola bera** (5); **axola berak** (3); **axola biziz** (3); **axola didan bakarra** (3); **axola die** (5); **axola digu horrek** (3); **axola dik** (3); **axola dio horrek** (9); **axola diona** (3); **axola du horrek** (6); **axola duela** (3); **axola duen gauza** (3); **axola duena da** (8); **axola duten** (13); **axola ere** (6); **axola esan** (4); **axola esatea** (3); **axola eskasa** (4); **axola ez badizu** (8); **axola ez bazaizu** (15); **axola ez diola** (4); **axola ez zaion** (4); **axola ez ziola** (3); **axola ez zitzaiola** (4); **axola gabe** (9); **axola gainera** (3); **axola gehiago** (9); **axola gure** (3); **axola guti** (14); **axola gutxi du** (3); **axola gutxiago** (5); **axola gutxiko** (6); **axola gutxikoa** (3); **axola handi batekin** (4); **axola handia** (11); **axola handiko kontua** (3); **axola handikoa** (5); **axola handirik ere** (4); **axola handirik gabe** (3); **axola hura** (4); **axola inoren** (3); **axola izaten** (4); **axola izpirik** (5); **axola mikorik** (8); **axola ni** (4); **axola non** (5); **axola orain** (3); **axola zaidan** (8); **axola zaiela** (3); **axola zaien** (3); **axola zaigun** (5); **axola zaiguna** (3); **axola zaio hori** (3); **axola zaiola bere** (3); **axola zaion** (8); **axola zait niri** (6); **axola zaizkit** (3); **axola zaizu zuri** (3); **axola zaizue** (3); **axola zeinek** (3); **axola zenbat** (7); **axola zerbait** (5); **axola zidan** (6); **axola zitzaidan niri** (3); **axola zitzaigun** (3); **axola zitzaion zer** (3); **axola zitzaiona** (3); **axola zitzaionik** (7); **axola zitzaizkidan** (4); **axola zuena** (4)
>
> **baina axola** (8); **baina bost axola** (15); **baina zer axola** (17); **baino axola** (4); **baino gehiago axola** (3); **bakarrik axola** (6); **batere axola ez** (9); **benetan axola duena** (7); **berari bost axola** (3); **bortz axola** (3); **bost axola berari** (4); **bost axola bere** (3); **bost axola dio** (9); **bost axola diola** (3); **bost axola erantzun** (4); **bost axola guri** (4); **bost axola haiei** (3); **bost axola hari** (4); **bost axola hori** (3); **bost axola horrek** (15); **bost axola izan** (6); **bost axola izango** (3); **bost axola nire** (3); **bost axola niri** (46); **bost axola zaidak** (7); **bost axola zaidala** (5); **bost axola zaie** (11); **bost axola zaik** (3); **bost axola zaio** (10); **bost axola zaiola** (9); **bost axola zait** (15); **bost axola zaizkie** (3); **bost axola zaizkio** (6); **bost axola zer** (4); **bost axola ziola** (3); **bost axola zion** (10); **bost axola zitzaidala** (7); **bost axola zitzaidan** (8); **bost axola zitzaien** (5); **bost axola zitzaiola** (11); **bost axola zitzaion** (16); **bost axola zitzaizkion** (3); **bost axola zuri** (5); **bost piper axola** (4); **da axola duena** (5); **da orain axola** (3); **dena bost axola** (10); **deus axola** (3); **dio askorik axola** (5); **dio axola zein** (3); **dio batere axola** (5); **dio orain axola** (3); **dit gehiegi axola** (3); **du axola handirik** (7); **du orain axola** (3)
>
> **egiaz axola** (3); **ere bost axola** (19); **ez axola** (3); **ez die axola** (3); **ez digu axola** (6); **ez dik axola** (16); **ez dio axola** (90); **ez diola axola** (8); **ez dit axola** (28); **ez dizu axola** (3); **ez du axola** (59); **ez duela axola** (3); **ez dute axola** (4); **ez litzaidake axola** (3); **ez zaidak axola** (4); **ez zaie axola** (10); **ez zaigu axola** (8); **ez zaio axola** (27); **ez zaiola axola** (6); **ez zait axola** (41); **ez zaizkio axola** (4); **ez zaizkiola axola** (3); **ez zaizu axola** (9); **ez zidan axola** (8); **ez ziok axola** (3); **ez zion axola** (26); **ez zitzaidala axola** (4); **ez zitzaidan axola** (28); **ez zitzaien axola** (7); **ez zitzaiola axola** (15); **ez zitzaion axola** (34); **ez zitzaizkion axola** (3); **ez zuela axola** (3); **ez zuen axola** (7); **ezer axola** (3); **gehien axola zaidana** (3); **guri axola** (4); **guri bost axola** (7); **guri zer axola** (4); **guti axola** (3); **gutxi axola dio** (3); **gutxien axola** (4); **hain axola** (4); **hainbeste axola** (8); **hemen axola** (7); **hiri zer axola** (4); **hori axola** (4); **hori da axola** (7); **horrek axola** (5); **horrek bost axola** (3); **horrek gutxi axola** (3); **horrek zer axola** (3); **horren axola** (3); **hortaz axola handirik** (3); **ingurumenaz axola** (4); **inori axola ez** (5); **niri axola** (3); **niri bost axola** (26); **niri zer axola** (3); **nitaz axola** (3); **nori axola dio** (4); **nori axola zaio** (8); **noski axola** (3); **piper axola zaidala** (3); **piperrik ere axola** (3); **zaigu askorik axola** (3); **zaio batere axola** (4); **zait axola zer** (3); **zait batere axola** (6); **ze axola zaik** (3); **zen axola** (3); **zenbateraino axola** (4); **zer axola digu** (4); **zer axola dio** (54); **zer axola dit** (3); **zer axola dizu** (8); **zer axola du** (17); **zer axola dute** (4); **zer axola niri** (7); **zer axola ote** (3); **zer axola zaigu** (6); **zer axola zaio** (8); **zer axola zait** (8); **zer axola zaizu** (10); **zer axola zion** (5); **zer axola zitzaion** (5); **zer axola zuen** (3); **zer axola zuri** (3); **zergatik axola** (4); **zitzaidan asko axola** (4); **zitzaidan axola izan** (3); **zitzaigun batere axola** (3); **zitzaion askorik axola** (3); **zitzaion axola izan** (3); **zitzaion batere axola** (8); **zitzaion gehiegi axola** (3); **zitzaizkiola batere axola** (3); **zoin axola** (3); **zuri zer axola** (12)
>
> **asko axolako** (3); **axolako ez** (3); **axolako litzaidake** (3); **zer axolako** (4)
>
> **axolarik batere gabe** (4); **axolarik ere** (4); **axolarik ez bailuan** (5); **axolarik ez duen** (4); **axolarik ez duten** (3); **axolarik ez horrek** (3); **axolarik ez zuen** (3); **axolarik eza** (6); **axolarik gabeko** (4); **axolarik izango** (4); **batere axolarik ez** (5); **batere axolarik gabe** (5); **deusen axolarik** (5); **ez dik axolarik** (3); **ez dio axolarik** (13); **ez diola axolarik** (3); **ez dizu axolarik** (3); **ez du axolarik** (18); **ez zuen axolarik** (3); **ezeren axolarik gabe** (3); **zion axolarik** (3)
>
> **axolik ez** (3); **batere axolik** (3)

---

axolabako *adlag* axolagabe.

Zaldiek **axolabako** zanpatzen eta zikintzen zituzten pave haien azpian egon behar zuten ublietek, Putzuen Dorrearen hondoenean zeuden zigor zeldek, ahazturaren ziegek: hazurrobiek, nire hizkuntzan. Koldo Izagirre

---

axolaez *iz* axolarik eza.

Gizakiaren harrapaketa-grina laburraren eta **axolaez** luzarokoaren xedea. Xabier Olarra

Iparraldean eta Hegoaldean, fedeari buruzko **axolaeza** haundia zabaldu da. Herria

Komatik atera zenean, beraren amak dioenez, "beste pertsona bat" zen: nagitasun, **axolaez** eta geldotasun bitxiak nabari zituen, eta ez omen zuen antzik ordu arte izandako mutiko ipurtarin bihurriarekin. Xabier Olarra

---

axolagabe *(orobat **axolakabe**)* **1** *izond* gauzez behar den axola edo ardura ez duena; gauzak edo gauza jakin bat axola ez zaizkiona.

Imita ezazue arestian aipatu dudan herri-lege zuhurra; zigor ezazue lapurtzen uzten den gizon **axolagabea**, baina lapurrari ez egiozue inongo zigorrik ezarri. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Onenean, txoro **axolagabe** bat zen. Anjel Lertxundi

Soldadu **axolagabe** zirtzil bilakatu omen ginen, eta berak jarraraziko omen gintuen sasoi betean. Mirentxu Larrañaga

Ez nuke nahi inork pentsatzea **axolagabea** naizenik: instalazioaren funtzionamendu zuzenaz behin eta berriro arduratzen nintzen, eta baita ordezko bateriaren kargatzeaz ere. Iban Zaldua

Bat abertzalea da, edo anti, edo kristaua, budista, sozialista, edo **axolagabea**. Joxe Azurmendi

Egunkari saltzaileak hasiak ziren nire aurretik pasatzen harrigarri fresko eta **axolagabe**. Matías Múgica

Dirua neukan, **axolagabe** nintzen... Ramuntxo Etxeberri

2 *izond* (gauzez mintzatuz)

Eta adierazi, hain zuzen ere, ordoki lohi bat zeharkatzen ari ginelarik, non begiztatu ahal izan baikenituen gizairudi gogoangarriak eta aitzurketa **axolagabean** ziharduten aurpegi luzangak. Karlos Linazasoro

Neguaren amaieran kostata ulertu zuen metroko enplegatuaren ahots **axolagabea**. Lutxo Egia

Gero, doinurik **axolagabeenaz** galdetu zien. Karlos Zabala

Haserrealdi bortitza izan omen zuen Miriamekin arratsalde hartan, baina inork ezin zuen ulertu zein indar basatik eta ezkutuk bultzatu zuen errepidera hain egoera urduri eta **axolagabean**. Aritz Gorrotxategi

Lagunek, pospolo **axolagabe** bat etxea erretzen hasten delarik, ez dute sua amatatzeko ahaleginik egiten. Pablo Sastre

3 (adizlagun gisa)

Orain **axolagabe** bizi zarete, baina urtebete igaro eta laster dardara egingo duzue, mahats-biltzea amaituko baita eta ez da gehiago uztarik izango. Elizen arteko biblia

Alferrikakoa da giza izaerari **axolagabe** izan ezin zaizkion gaien ikerkuntzen aurrean axolagabekeriaren itxurak egin nahi izatea. Ibon Uribarri

Jada behar ez eta **axolagabe** abandonaturiko ametsak balira bezala. Fernando Morillo

Modu horretan, Marieren ahaideen aldetik **axolagabe** jokatuko zutelako ideia sortzeko ahalegina egiten zuen aldizkariak, ahaideek gorpua neskarena zela pentsatzearekin adosten ez zena. Koro Navarro

Bata bestearen besoetara lerratu ziren, **axolagabe**, ondotik pasatzen zitzaizkien kideen erdian musu eta balakari. Itxaro Borda

-Orain ez behintzat -ihardetsi zion Sergiok, **axolagabe**. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

axolagabe antzean (5); **axolagabe bat** (8); **axolagabe batez** (3); **axolagabe itxurak** (3); **axolagabe izan** (5); **axolagabe jokatu** (4); **axolagabe jokatzen** (4); **axolagabe samarra** (3); **axolagabe uzten ez** (3); **bezain axolagabe** (7); **edo axolagabe** (3); **guztiz axolagabe** (3); **keinu axolagabe** (3); **zuen axolagabe** (3)

axolagabea da (3); **axolagabea izan** (4); **jarrera axolagabea** (5)

---

axolagabean *adlag* axolagabe.

Ur-tupina desagertu delako aitzakiaz, **axolagabean** baldekada bat ur botatzen duzu sutara, eta, egoskor, zure aldrebeskeria aitortu beharrean, besteei egozten diezu errua, baita neuri ere. Itziar Otegi

---

axolagabekeria **1** *iz* axolagabearen jarrera, gaitzesgarritzat hartua.

Halako **axolagabekeria** gisako batek harturik, irriz karkailaka hasi zen. Patxi Zubizarreta

Ongi zetorkidan, azken finean, **axolagabekeria** hura, gehixko gizentzen ari nintzela iruditzen ari zitzaidalako, eta nire gorputza lehen bezain ederra ez zelako. Joxan Elosegi

Hamar urte geroago, lasaitasun eta **axolagabekeria** berberaz sartu ginen botika hartan. Sonia Gonzalez

Indioak beraiek ere eritu egiten dira maiz **axolagabekeriagatik**. Gotzon Garate

Izan ere ezjakintasunez edo **axolagabekeriaz** kalte izugarri eta betikoak eragin diezazkiokegu gure bizitzaren eta gure ongizatearen oinarria den lur-ingurumenari. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Nire adiskidantza zorrotza iduritzen zaizu, eta alferrikakoa izan dadin nahi dut nik; nahiago dut ordea deitora dezazun haren arta, ezen ez haren **axolagabekeria**. Jon Muñoz

Ezin uler nezake zure **axolagabekeria**. Xabier Paya

Zorionaren giltza, **axolagabekeria**! Ramuntxo Etxeberri

2 *iz* axolagabekeriak eragindako egite gaitzesgarria.

Bizkar aldetik Jesukristo gurutziltzatuak begiratzen zigun, martirio unerik latzenean beti, gure **axolagabekeriari** begira, Nik bai sinesten dudala zuengan esanez bezala. Joseba Sarrionandia

Horrela hasten eta bukatzen dira **axolagabekeria** guztiak. Josu Zabaleta

Gu, hemen, hala egokitu zaigun lur eskergaiztotik nola eratzen ari den izpiritu portugaldarrak pairatzen dituen **axolagabekerietatik** datozkigun zailtasunak ditugun arren, ahal duguntxoa egiten gabiltza. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

axolagabekeria ere (7); **axolagabekeria hori** (3); **axolagabekeria salatu** (3); **duen axolagabekeria** (4); **ez axolagabekeria** (3); **halako axolagabekeria** (5)

axolagabekeriaz jokatu (3)

---

axolagabeki *adlag* axolagabekeriaz.

Batzuk, lehenengo kolpetik, logikaren ondoriorik muturrekoenetaraino joan dira, **axolagabeki**. Josu Zabaleta

Alderantzizkoa ere esan daiteke: noizbait maitatu zenuen zer edo nor hura ez erabat eta **axolagabeki** baztertu. Pako Aristi

Jansonek **axolagabeki** hartu zuen porrot hura ere, eta bakean utzi zuen sukaldaria. Jose Morales

-Litekeena dun -erantzun zion **axolagabeki**. Migel Angel Mintegi

Axolagabeki bezala azaldu zizkion toki hartako marabillak. Eider Rodriguez

---

axolagabetasun *iz* axolagabearen jarrera.

Halako **axolagabetasun** eta alaitasun erakutsi-nahi bat sartzen zitzaien denei heriotza aurrez aurre topatzean, hara iristen ziren gizagaixoei erraiak atera eta haien gorpuak zatitan moztea gauza dibertigarria eta alaia balitz bezala. Josu Zabaleta

Exogenoak, berriz, gizarte arazoak dira: bazterketa, **axolagabetasuna**, aurreiritziak edo estigmatizazioa dira arazo handienak. Berria - Euskal Herria

Etxean inoiz ez zen ezer konpontzera eramaten, gauzekiko **axolagabetasuna**. Joseba Urteaga

Txitxikov ohartu zen ez zela gisakoa hain **axolagabetasun** handiz hartzea besteren zorigaitza, eta, horrenbestez, hasperen egin, eta erruki zuela esan zion. Jose Morales

-Auskalo, ba -**axolagabetasunezko** keinu bat egin zuen. Jon Muñoz

---

axolagabetu, axolagabe(tu), axolagabetzen da *ad* axola galdu, axolagabe bihurtu.

Gaixotasuna baino lehen hura ongi hartzen zuen, ongi esaten zion, eta opariak ere egiten zizkion; gaixotasunarekin, baina, guztiz ahantzi zuen eta guztiz **axolagabetu** zen haren existentziaz. Patxi Zubizarreta

Oraintsukoak ziruditelako **axolagabetu** zen Ruche jauna aldizkari haietaz? Jon Muñoz

Baina Rémy ergel horrek afera endredatu eta dena hondatu duenez, amaieraz **axolagabetu** da Axenario. Itziar Otegi

-Nola jakin duk hori? -galdetu zion Fernandok Orrondori, komentario hartaz **axolagabeturik**. Pedro Alberdi

---

axolagabezia *(ETCn **87** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **axolagabekeria** eta **axolagabetasun** agertzen dira) iz* axolagabearen jarrera.

Erantsi horri patu zurrun baten dogmak ematen duen gauza guztiekiko **axolagabezia**. Iñaki Iñurrieta

Baina lapurreta edo suteen aurkako aseguruari heltzean, bazirudien aseguru-etxeek batez bestekoen legeekin espekulatzen zutela, gizakiaren tasun bereizgarri diren kriminalitate eta **axolagabeziari** aplikatuta. Iñaki Mendiguren

Edalontzia beduinoen **axolagabeziarekin** eramango du ahora eta, likorea irentsi ondoren, belarrira egingo dizu oihu. Joseba Sarrionandia

Baina Honey gogorregia da eta ez du uzten Tomen **axolagabeziak** erantzun bikain eta xarmagarriak ematea eragotz diezaion, eta luze gabe bera bihurtzen da elkarrizketaren gidari, gure mutila berari otutako dozenaka galderarekin bonbardatuz. Oskar Arana

Geroztik gogotik berdindu dut garai hartako utzikeria, eta gainera, zer arraio!, ez al da ederra ezer ez egitearen plazerra, **axolagabeziaren** goxoa? Xabier Mendiguren Elizegi

Bereizketa horri ekiten diona da heldua, eta aukera horien artean burutzen dituen hautaketak ikusita erabakiko dugu noraino duen bere baitan zaharren kontserbazio sena ala

gazteen **axolagabezia**. Pako Aristi

---

axolakabe *izond* axolagabea.

Arma modu **axolakabean** eramaten huen, paseatzeko makila balitz bezala. Xabier Olarra

Bai: alai eta **axolakabe** eman zidan eskua, zerean, jatetxe batean topatu bagina bezala. Matías Múgica

Leiho itxiak eta euriak zipriztinduriko harri **axolakabea** baizik ez nuen topatu, ordea. Alberto Ladron Arana

---

axolakabekeria ik **axolagabekeria**.

---

axolakeriaz *adlag* axolagabekeriaz.

Beraz, luzaz berant oheratu naiz diot, ez **axolakeriaz** hainbatetan, bilkuraz bilkura gauak pasaturik, batez ere ezezko ihardespenen ahoskatzen ez dakidalako. Itxaro Borda

---

axolati *izond* axolatsua.

Une batez negar gutiziaz amildu nintzen eta bihotzak, hipak entzutean, ohean inguru ez **axolatia** marraztu zuen, ezker aldera. Itxaro Borda

Hanka-puntetan sartu zen Beltza eta kriski-kraska hurbildu zen ohe ondora; hasieran **axolati**, baina gero adoretsu, sekulako estutua eman zion konorterik gabe zegoen emakumeari, haren haragi mamitsuan arrastoak uzteraino. Mirentxu Larrañaga

Agerian zegoen Tino bestearen gainetik zegoela, beste alde batera begiratzen zuelako, axolagabe finkatzen zuen begirada zerumugan, besteak, **axolati**, berriak ematen zizkion bitartean. Fernando Rey

---

axolatsu *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi) izond* arduratsua.

Amodioak eta bata-bestearenganako elkartasun **axolatsuak** gintzuten hazten, ondokoen erramerranetarik urruntzen. ETC-literatura, saiakera

Sukalde ondoko garbiketa-gelara joan, han botak jarri (Lily oso **axolatsua** baitzen bere sukaldeko zoruaren txukuntasunari zegozkion gauza guztiekin) eta irten egin zen. ETC-literatura, saiakera

Haurrak bazekien aurpegi serio, **axolatsu** bat eskatzen ziola aitak, eta ikasia zuen horrelako jarrera erakusten ere, eta ez zitzaion axola, zeren halaxe baitziren gauzak, baina ez zen bere egiazko izateko modua. ETC-literatura, saiakera

Beaussire filosofia moraleko profesoreak estudio historiko **axolatsua** egin du alemanen gorrotoa frantsesenganako zergatik eta nola sortu den arakatzen. ETC-literatura, saiakera

---

axolatu, axola(tu), axolatzen da *ad* zerbaitez axola izan, kezkatu.

Ez du bere buruaz **axolatu** behar, senarraz, haurrez eta etxean bizi direnez baizik. Gotzon Garate

Ez zen laboraria eta ez zen sekulan aroaz **axolatu**. Elena Touyarou

Norbaitek **axolatu** behar zuen gobernamenduaz, erregina eta Vianako printzea itzuli artean. Aingeru Epaltza

Nola Nafar Doktoreak mihiluze fama baitzuen eta Ofizio Sainduaren auzitegiko sekretuez ez baitzen biziki **axolatzen**, bi galdeketa egin zizkioten, egiaztatzeko ea zinez sekretuki bidalia zion bere txostena Erregeri, ala Erromako edo Trentoko bideetan ateraia zen. Piarres Xarriton

Informazio biltzeaz **axolatzen** da, ez mendekuaren hartzeaz. Xabier Montoia

Orduan, gure Jainkoaren kutxa ekarraraziko dugu geure artera; izan ere, ez gara hartaz **axolatu** Saulen erregealdian. Elizen arteko biblia

Azkenik, ez baitzen inor **axolatzen** ez beraren olerkiez ez beraren gutunez, ezinak jorik geratu zen. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aski axolatu gabe (3); **axolatu behar** (8); **biziki axolatu gabe** (3); **dugula axolatu** (3)

axolatuak diren (3)

ez axolatzea (3)

axolatzen da (3); **axolatzen den** (4); **axolatzen denak** (5); **axolatzen diren** (17); **axolatzen zen** (5); **da axolatzen** (3); **hainbat axolatzen** (3); **horretaz axolatzen** (3); **hortaz axolatzen** (3)

---

axolbe *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **aizolbe** agertzen da) iz* haizeaz babesteko aterpea.

Ithurbidekalonjea, Mauleko San Frantzes ikasgiako bürüzagia, ihesliar hanitx aterbetü beitzüan aleman soldadoen südürpetik (denbora batez ja SS haietarik ziren), etsaiari ere **axolbea** emaiten beitzeion, bena gogoz gainti, Ziberoko ikastetxe libro zahar hortan. Herria

---

axoldu ik **axolduritu**.

---

axolduri *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) adlag* arretaz, arduraz.

Iragan den denborako jendeak hain ziren arduratsu eta **axolduri** bere haurren gainean, eta hain zedukaten kontu handia nork berei ongi erakusteaz eta aztura onen emaiteaz, non iduritzen baitzeien behin ongi haziz gero, on eta prestu baizen ezin ziratekeiela. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

axolduritu *(orobat **axoldu**)*, axolduri(tu), axolduritzen da *ad* arreta eman, ardura izan.

Eta, nola mehatxu haien itzala baikenuen dantzan geure buruen gainean eta hargatik bizi ginen iratzarririk eta **axolduriturik**, segurantzarik gabe, iduriturik ezen jende haiek noiznahi-den oldartuko zitzaizkigula, hala, bertze egun batean erran zidan gipuzkoarrak. Joan Mari Irigoien

Biharamun goizean neure langelan nengoen, gora handiko beste kasu batzuez **axoldurik**, bezperan jazotakoaz ia ahaztua. Gotzon Garate

---

axolgabe ik **axolagabe**.

axolgabekeria ik **axolagabekeria**.

---

axolkabe ik **axolagabe**.

---

axonometria *iz* hiru dimentsioko objektuak planoan irudikatzeko sistema.

Sistema batzuk berariaz erabiltzen dira oso modu konbentzionalean: hori egiten da, esate baterako, arkitektoek eta topografoek erabiltzen duten **axonometrian** ; **axonometria** zentro gabeko sistema bat da, zuzen paralelozkoa. Josu Zabaleta

---

axonometriko *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi) izond* perspektibaz edo proiekzioez mintzatuz, objektua hiru dimentsiotan irudikatzen duena.

Oso lagungarria izaten da betiere sarearen perspektiba **axonometrikoa** marraztea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Proiekzio **axonometriko** baten perspektiba paraleloa; lerro guztiak hiru ardatz nagusiekiko paralelo dira eta eskalan marrazten dira, baina lerro diagonalak eta kurbak distortsionatu egiten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mota desberdinetakoak daude: perspektiba **axonometrikoa** , perspektiba konikoa, perspektiba zilindrikoa... baina gehien erabiltzen dena perspektiba **axonometrikoa** da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erakutsi zituen marrazkien artean, aipatzekoa da Artisau Elkarteen pabiloiaren irudi **axonometrikoa** . ETC-entziklopedia

Gune arkeologikoaren ikuspegi **axonometrikoa** . ETC-entziklopedia

---

axota *iz* boligrafoa. ik **bolaluma**.

Aitak **axotaz** besoan apuntatu zidan tinta azulezko flirt-telefono zenbakia amak xaboi-urarekin igurzten zidan bitartean. Harkaitz Cano

Axota gorriz idazten zuen beti. Jasone Osoro

Izen batzuen aldamenean "neska", besteetan "mutila" idatzi zuen Idoiak urte hasieran, eta Amets izena **axota** gorriz borobildu, "neska zein mutila". Eider Rodriguez

---

axtarka *adlag adkor* aztarka.

Mutikotan itzain ibilia naizelako edo, beti xoratu izan nau hitz honek, eta atzenaldera sekula baino usuago, artxiboetan **axtarka** nabilela: Patziku Perurena

---

axuant *(orobat **axudant** eta **axurant**) iz* auzapezaren laguntzailea, alkateordea, sail bateko zinegotzi arduraduna.

Dominique hirugarren haurra, herriko **axuant** eta Garaziko zindikatean Zaroko ordezkari izan zen. Xipri Arbelbide

Igande goizean, bildu dira auzapez eta **axuant** edo laguntzaileen hautatzeko. Herria

Behin kontra-errailea izan zuen, justiziaren ala karitatearen lehentasunaz: Sigala apeza, Périgueux-ko meraren **axuanta** , filosofia erakaslea, presuna ohargarria eta maitagarria, nehon baldin bazen. Marzel Etxehandi

Geroago, goitikinez eta gorotzez tindatu gela hertsian, **axuanta** bere zerbitzuko pistolarekin tiro eginez lasterkaraziko zuten, mendekuaren jokoa baltsa hilkor bihurtuz. Itxaro Borda

Bozka ondo, bigarren itzuli baten ondotik kontseiluak hautatu ditu auzapeza eta **axuantak** . Herria

Axuantak azaldu dizuenez, felagen jukutria baten lotsa dituzue ofizierak eta, beraz, helikopteroa itzuli arte igurikiko duzue oldarraren hasteko. Xabier Montoia

Han zen ere Jakes Abeberry, Miarritzeko herrian **axudant** dena. Herria

Ofizioz pietuna, herriko kontseiluan egona zen luzaz eta **axurant** karguan ere ainitz urtez. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **auzapez eta axuant** (5); **axuant kargua** (4); **axuant karguan** (3); **bigarren axuant** (3); **laugarren axuant** (3); **lehen axuant** (8)
> **lehen axuanta** (11)
> **auzapeza eta axuantak** (4); **axuantak agur bat** (4); **bergara axuantak agur** (5); **etxegarai axuantak** (4); **kultur axuantak** (3); **lehen axuantak** (5)
> **auzapeza eta axuanten** (3)

---

axudant ik **axuant**.

---

axuleiu ik **azuleju**.

---

axurant ik **axuant**.

---

axurantza *iz* asegurua.

Erien **axurantza** Kutxako buruzagiek segurtatzen dute ez duela minik emaiten, kontrola tresnak azken puntakoak direlako eta usu berek kontrolatzen baitituzte. Herria

Berezko berriak baldintza ahal bezain hoberenetan abiaraztea, trebatzeak, kontratuak, administratibo desmartxak (**axurantzak** , zergak...), osagarri egoerak, pilotako materiala... Herria

Zauriaren gaineko pikoa, St Louis Baionako kolejioan sua izan zen eta **axurantzek** ez zituzten hurbiltzekorik ere makurrak oraintzen. Xipri Arbelbide

Baina **axurantzek** ez dute oraino kalteen pagatzen hasteko xederik, jakin arte noren hutsaren gatik ote den urberotegia ustegabetarik zapartatu? Herria

Arrapostuak beste hainbat hilabete hartuko ditu, anartean **axurantzek** zentimorik ez dute aterako. Herria

---

axuri 1 *iz* arkumea. ik **bildots**.

Eperik eperako epeak halakoak ziren **axuri** merkatuetan maiz denbora galtzen zutela uste zutenentzat. Itxaro Borda

Ardi eta **axuriek** mihiaz lamikatzen zituzten. Pello Zabala

Axurien gordagia galdu zuten osoki, lau ahariak hilik eta aterpea kiskalita.Eta niri jadanik ez zidaten penarik ematen, zintzurra egindako **axuri** bat eta zoritxarren bat zuen edonor ikuste hutsarekin negarrez hasten nintzen honi, niri, aleman haiek ez zidaten jadanik pena ematen. Berria - Euskal Herria

Bildots begi handi batzuk zituen -haiek bai txirikordaren dinakoak-, baina bazirudien ezin zuela ikusi, **axuri** jaio berriak bezalaxe, hain zuzen. Josu Zabaleta

Hola da kasik Eguberriko bildotsa bilakatua, sasoiak aintzinatuz, lehengo Bazko-**axuria**. Herria

2 *ez ardi eta ez axuri*

Horregatik asmatu zuen honako esaera konpleto hau lotu zuenak: Ilbeltzak iten badau hil txuri, ardiek haziko dau axuri; Ilbeltzak iten badau hil beltz, **ez ardi eta ez axuri**. Pello Zabala

---

axuriki *(orobat **axurki**) iz* axuriaren okela. ik **arkumeki**; **bildoski**.

Jendearen gustuak aldatzen zihoazen: **axurikia** jatekotan, amodioa haina light eskatzen genuen. Itxaro Borda

Egun hura ona izan zen, eta dena saldu zuten; gainera, **axuriki** saiheski zenbaiten prezio ikaragarrian erosteko luxua onetsi zioten beren buruari. Elena Touyarou

---

axurki ik **axuriki**.

---

axut 1 *interj* erronka edo arbuioa adierazteko erabiltzen den hitza.

Arrosen mutilek gau osoa egin zuten **axut** eta zalapartaka, eta gau osoa orobat bertzeek esperoan, haiek harresietako aterpe goxoa noiz utziko. Aingeru Epaltza

Harriturik, hitzorduaren tokian, gurutzearen ondoan, ez zegoelako inor, halako batean, hots batek asaldatu zuen zuberotarra: **Axut**! Pablo Sastre

Aldeok jarrera erabat kontrajarriak dauzkagu eta argi da Iranek **axut** egiten diola nazioarteko komunitateari osotasunean. Berria - Mundua

2 *axut egin*

"Aldeok jarrera erabat kontrajarriak dauzkagu eta argi da Iranek **axut egiten** diola nazioarteko komunitateari osotasunean», azaldu zuen Douste-Blazyk, "Segurtasun Kontseiluaren eginbeharra izango da IAEAren jarrera indartzea». Berria - Mundua

---

ayatola ik **aiatola**.

---

aza 1 *iz* baratze landarea, jateko ona, buru batean biltzen diren hosto zabalak dituena*(Brassica oleracea)*.

Sukalde argitsu batera heldu ginen, non **aza** egosiaren sunda etxekoia sudurreratu baitzitzaidan. Alberto Ladron Arana

Zerion **aza** minduaren usaina, atzera eragitekoa. Anjel Lertxundi

Urte zaharreko gasnak, arrautza freskoak, antzara edo gita umeak, landatzeko **aza**, porru eta piper ondoak: denetarik kausitzen zen. Itxaro Borda

Salda eramaten zioten, **aza** zopa, ogi puska bat, patatak, edo eskaintzeko zuten edozer gauza, eta atean uzten zioten; lehoi baten zuloan sartzea bezala zen Henneren etxean sartzea. Koro Navarro

Irrati aparatu baten musika zetorren patiotik, bazkalorduko **aza** egosien usain minkor eta umelarekin batera. Javi Cillero

Arestian zirriborratu dizkizudan **aza** txortenetan landuak eta orratzez apainduak dauden bi handitsu horiek kolumnata bat dute oinarri, eta ez dago deus halakoari aldera litekeenik ez bada Pariseko gure Saint Louis karrikako Sakramendu Sainduko Saint-Denis kolumnata. Koldo Izagirre

Bai segur, dela porru, **aza**, tipula edo baratxuri, dela piper, pastenagre, entsalada edo ilarleka, ahantzi gabe perrexila eta xarbota, horiek oro eta beste landare mota asko gure baratzean garatzen ziren amatxiri esker. Daniel Landart

2 *arbi-aza*

Ilar hotsaren gainetik eta egosten jarritako **arbi-azaren** usain gogorraren gainetik, Sethek antzina belarrietan eramandako kristalena kontatu zuen. Anton Garikano

Zopa bazka-erremolatxa eta **arbi-azaz** egina zen egun hartan, nik oso maite nuena, eta Revier-erako lodi-lodi ateratzen zuten, horrek ere asko poztu ninduen. Urtzi Urrutikoetxea

Lau haizeetara iragarri zituzten, lotsaren arrastorik gabe, espezie bat beste bat bihurtzeko beren esperimentuak: garia zekale, oloa garagar, aza **arbi-aza**, eta gero hura izei. Juan Garzia

Aldi batean eskarola baizik ez genuen jateko: eskarola harearekin, harearik gabe, patata purearekin, hutsik edo eltzekoan; geroztik espinakak, **arbi-azak**, terebuzak, luzokerrak, tomateak, xukruta, eta abar. Josu Zabaleta

3 *aza berde*

Aurpegia listerinaz busti zuen, norbere garbiketarako gauzak bere toaila hezean bildu eta **aza-berde** koloreko alfonbra batez estalitako eskailera batzuetan gora egin zuen. Lopez de Arana

Aza klaseak berak ez ditugu gutxi: aza beltza, aza zuria, **aza berdea**, aza kizkurra (Milango aza) urraza (letxuga), zakurraza, ahuntzaza... Patziku Perurena

4 *aza gorri*

Mikel Strogoffek bere laguntxoak baino gehiago ez zuela jan behar pentsatu zuen, eta bazkari urria egin zuten biek: kulbat pixka bat -gorringoz, arrozaz eta haragi xehatuz egindako pastela-, kabiarrez betetako **aza gorri** pitin bat, eta tea besterik ez edateko. Karlos Zabala

5 *aza hosto* azaren hostoa.

Florentek bururdi bat egin zuen **aza hosto** pila batez, eta zeruari begira jarraitzen zuen, non distira arrosa handi bat pizten ari baitzen. Karlos Zabala

Baina ederki luzatuko dizkizute **aza-hostoak** gaur iluntzean! Itziar Otegi

Baina betiere **aza hosto** batzuk uzten dizkio ontzigainean. Patxi Zubizarreta

Sar daitezela jendearen neurriekin, itxurekin, belarrietako **aza hostoekin**. Iñigo Aranbarri

6 *aza-kirten*

Nolanahi ere, arrunt ongi ez zuten hartuko **aza-kirten** batek ostikoka iratzartzea, inondik ere. Karlos Zabala

Bestelako dantzatan, jolasetan, kantatan edo esaneratan ere maiz ageri zaizkigu "Aza landare, aza gazte lantare, **aza kirtena**, azalorea, azaburua" eta gisakoak, sinbologia ugaritan. Patziku Perurena

Harrosko hogeitabost urte inguruko gazte bat zen, argala, eta ilea atzeraka orraztuta eramaten zuen, kizkurtuta buru gainean, gominaz basitua lokietan eta atzean gandor moduko bat eginez, iparraldeko **aza-kirtenek** eta Trastevereko guapoek bezala. Koldo Biguri

7 *aza kizkur*

Aza klaseak berak ez ditugu gutxi: aza beltza, aza zuria, aza berdea, aza **kizkurra** (Milango aza) urraza (letxuga), [...]. Patziku Perurena

Aza **kizkurrak,** beren hosto handiekin brontzezko ontzi mahai-apaingarriak ziruditenak. Karlos Zabala

8 *aza landare* aza.

Nork asma egun, bost **aza landare** haiek behiala gordeko zuten xarma sinbolikoa! Patziku Perurena

Ziazerba eta mingarratz alorrek, errefau, arbi eta azenario zerrendek, patata eta **aza landare** handiek beren zamau erregularrak hedatzen zituzten, beren lurrustel beltza

zabaltzen, hostoen mototsek berdetua. Karlos Zabala

9 *aza lapiko*

Piperrautsa hurbil bazeukan, piperrautsa botatzen zuen; eskueran aza edukiz gero, **aza lapikora** , edo esnea, edo urdaiazpikoa, edo ilarrak, hitz batean, edozer, aski zuen prestaturikoa bero egotea, beti izango zuen-eta gusturen bat edo beste. Jose Morales

10 *aza orri* aza hostoa.

Itsasoan tarte bat zegoen, ezpal, kaxoi, laranja-azal eta **aza-orrizko** geruza batez estalia, ontziaren eta nasaren artetik igarotzean estu-estu egin zena. Lopez de Arana

11 *aza txinatar* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Lizar-hostozko koroa merezi dutenak, jakina, azatarrak: aza bera, Brusela aza, brokolia, buru-aza, zuhain-aza, azalorea, arbi-aza, aza gorria, aza kizkurra, romanesku aza, **aza txinatarra** ... aukera eta merkea botika. ETC-prentsa

Aza jendearen sendiko edozein aldaera halaxe prestatzen dut: [...] arbiaza (Brassica oleracea var. gongylodes), **aza txinatarra** (Brassica oleraceavar. pekinensis)... ETC-prentsa

AuxRE, 414 Avena saliva, 546 Avicennia, 330 Avogadroren zenbakia, 245 avr geneak, 394 axr1 mutantea, 575, 662 AXR1 proteina, 575 **Aza txinatarra** , 41 Aza, 585 ETC-zientzia, zuzenbidea

12 *aza zorrotz* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

"Brassica oleracea" var. "capitata" f. "acuta", **aza zorrotza** . ETC-entziklopedia

13 *aza zuri*

Barazki saltzaile andre batek **aza zuri** handiaren azpian ikusi eta ezusteak hain garrasi bizia eragin zion, ezen ondoko saltzaile andreak lasterka hurbildu baitzitzaizkion, miraz. Karlos Zabala

Aza klaseak berak ez ditugu gutxi: aza beltza, **aza zuria** , aza berdea, aza kizkurra (Milango aza) urraza (letxuga), zakurraza, ahuntzaza... Patziku Perurena

14 *aza zurtoin*

-Begira ezak -esan zuen Claudek, azken sarde kolpea ematen zuela, **aza zurtoin** hori ezagutzen diat. Karlos Zabala

15 *azak eman*

Berdin esan genezake beste lokuzio askori buruz: ahoa bete hortzekin utzi, antzarak ferratzera bidali, **azak eman** , azpiak jan, begia bota, bihotz ukan, burua galdu, burua lehengo lepotik izan, norbaiten bizkar bizi, hitza jan, lepoa egin, piper egin, (bereak, nereak...) eta bi (esan, entzun, ikusi...), ziria sartu [...]. Iñaki Arranz

16 *azak jo* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Ahal dela beti azak jatetik libre, baina, batik bat, etengabe **azak jotzen** dizkidatela sentitu gabe. ETC-prentsa

17 *azak ontzeko* hori gutxi balitz bezala.

Eta, azen **ontzeko** , maizterrak izan gara beti, lehen ere aipatu dudan bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

18 *azaren azpiko orri* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Eta hori, bere horretan, egia esatea besterik ez bada ere, norberaren amari behin baino gehiagotan entzutea gizon izatea gurago zuela benetan da gauza iluna, **azaren azpiko orriak** baino ez direla kodifikatzen duten belarrientzat. ETC-literatura, saiakera

Ez dira **azaren azpiko orria** erakundeek babesturik ele batean baino gehiagotan plazara datozen denetako materialak: liburuxkak, aldizkariak, esku programak... ETC-prentsa

Kolore eta tamaina guztietako aziendaren etorkizuna euri-jasaren ondorengo errioarena baino uhertuagoa den aro honetan hauen pasmo eta zornetaz aritzea neguko barazkien erregetza dagoenerako galdua duen **azaren azpiko orria** irudituko zaizu, baina tira... ETC-prentsa

Hau buruhaustea! Eta ez da **azaren azpiko orria** ! ETC-prentsa

19 *azen azpitik zopak jan*

Baina Euskal Herrian aspaldi hautsi ditugu muga horiek, eta orain dela urte asko hasi ginen **azen azpitik zopak jaten** . Pello Salaburu

20 *bazka-aza* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Bazka-aza ("Brassica oleracea var. viridis") aza landare mota burugabea da, hau da, hostoek buru trinkoa eratzen ez dutena. Beste izen ugari erabiltzen dira, hala nola zaldi-aza, txakur-aza, bitoriako aza. ETC-entziklopedia

Goizekoak, tartekoak eta hemendik aurrera jarritakoak negu hondarrean edo udaberrian jango diren aza zuriak, azalore edo peilak, Bruselazak, lisoak, kizkurrak, txinatarrak, aza gorriak, buru-azak, **bazka-aza** k. ETC-prentsa

21 *errefau aza* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Errefau-aza ("Brassica oleracea var. gongylodes") aza landare mota burugabea da, hau da, hostoek buru trinkoa eratzen ez dutena. ETC-entziklopedia

22 *olio-aza* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Afariko menua bizkaitar petoa izan zen: **olio-azak** , bisigua, konpota eta turroiak. ETC-literatura, saiakera

Olio-azak , barraskiloak, txitxarroak, gabon-madariekin egindako konpota-eta baino suak demait atentzioa. ETC-literatura, saiakera

Eta nire inuzentzia sasoiak usainez beterik daude: amaren morokila, amumaren **olio-azak** aititerentzako, orea labean... ETC-prentsa

Nik, berriz, joan den urteotan ez dut ipini, baina aurretik, kaleko koinata-eta elkartzen ginen eta **olio aza** ipintzen nuen. ETC-prentsa

Lehen oso ohikoa zen Eguberrietako otorduetan **olio-aza** jatea. ETC-prentsa

Etxe batzuetan, oraindik mantentzen dituzte ohitura zaharrak, eta menuan **olio azak** , ardo konpota edo intxaur saltsa sartzen dute. ETC-prentsa

Aspaldi ez dela, familia bildu eta **olio azak** janez eta sagardo berria edanez pasatzen zen gaua familian. ETC-prentsa

23 *txinatar aza* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Txinatar aza ("Brassica rapa" subsp. "chinensis") Brassicaceae familiako landare belarkara da, hau da, ortuetan lantzen diren belar itxurako barazkia. Nahiz eta "aza" hitza izan, berez arbi ("Arbi Brassica rapa") azpiespezie bat da. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aza hosto (3); **aza landare** (4); **aza pila** (5); **aza zuri** (3); **zen aza** (4); **zuen aza** (3)
azak ontzeko (3)
azen ontzeko (27)

---

azabatxe *iz* lignito mota gogorra, beltza eta distiratsua.

Azabatxe beltzezko begiek Mikelenak zulatu zituzten. Unai Iturriaga

Uso lako hegazti zuri zuriak helduko dira, bi **azabatxe** puntu bakarrik begitxoak eta bi grafito marratxo zangoak. Joseba Sarrionandia

-Ez zaitut itsusi aurkitzen, tabernariaren alaba, ilean sekula hausten ez den **azabatxe** harria daramazun neskatxa! Felipe Juaristi

Urrezko eta zilarrezko etzaulki asko zen han, eta zolua jade, marmol, nakar- eta **azabatxe** -harlosaz egina zen. Elizen arteko biblia

---

azaburu *iz* aza-hostoak biltzen diren burua.

Apenas nabarmentzen den **azaburuak** besterik. Patziku Perurena

Ibarlako jauna, ezer erantzun ordez, mezulariari bizkarra eman, eta jauregiaren albo batean zeukan baratzeko **azaburu** ederrenak mozten hasi zen igitai batez. Anjel

Lertxundi

Jakina, aza haziak erein orduan, eta a zer nolako **azaburuak** bilduko dituen, San Matiasetarako esna ibili bahaiz... Pello Zabala

---

azafata *iz* hegazkinetan, telebista saioetan edota biltzarretan izaten diren pertsona laguntzaileak, eskuarki emakumeak.

Harri eta zur ni: argibideak eman beharko zizkidan, bada, **azafatak**. Joxe Austin Arrieta

Azafata irtirinek beren gorputz lerdenak eskaini zizkiguten opari gisa, zernahitarako, igurtzirako edo, hizketarako edo, zernahitarako. Karlos Linazasoro

Azafaten esku zainduak ez dira fantasia. Lourdes Oñederra

---

azafrai 1 *iz* hosto estuak eta lore moreak dituen landarea, lorearen barnealdean laranja-koloreko izpiak dituena*(Crocus sativus)*.

Nonahi **azafraia**, piper-hautsa, kanela, pipermina. Koldo Izagirre

Mendiaren hegian azalera agertzen zihoazen, han-hemenka, harri gorrien muturrak eta **azafrai** horiak. Fernando Rey

Milaka usain zebiltzan airean enara kirri-kirrien modura: **azafraiaren** leun goxagarria. Felipe Juaristi

Azafraiaren eta hiazintoaren garaia maite dute gehien. Julen Gabiria

2 *iz* landare horren izpiak; izpi horiekin egindako hautsa, janariak ontzeko edo koloreztatzeko erabiltzen dena.

Azafraiz ondutako risottoarekin eta gremolatarekin zerbitzatzen da osso buccoa. Jon Muñoz

Sydenham sendagile ingelesaren formulan, opio hautsa alkoholarekin nahastuz egiten zen, **azafraiez** ematen zitzaion kolorea, eta Malagako ardoaren esentziaz usaingozatzen. Ramon Saizarbitoria

3 ***azafrai zangar*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Azafrai zangarra ("Crocus nudiflorus") Iridaceae familiako urteko landarea da. Lore morexkak udazkenean ateratzen dira eta azafraiaren ("Crocus sativus") antza dute. ETC-entziklopedia

4 ***basa-azafrai*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Baina bada bat udazken bete betean loratzen dena: **Basa azafraia**. [...] **Basa azafraiek** irailetik azarora bitartean koloreztatzen dute pagaditako lurzorua. ETC-prentsa

---

azafran ik **azafrai**.

---

azagaia *(corpusean ez dago; ETCn **64** agerraldi) iz* lantza arina, bultzagailu baten laguntzaz jaurtitzen dena.

Azagaia arma jaurtigarri primitibo eta arin bat da eskuarekin (xabalina bezala) edo bultzagailu baten laguntzaz jaurtitzen dena. ETC-entziklopedia

Honela, Paleolitoko arte higigarria dago, non, esate baterako, plakatxo grabatuak, paleolitoko Venusak, apaingarriak eta arpoi, **azagaia** eta bultzagailu apainduak dauden. ETC-entziklopedia

Hezur industriari dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira: tresna kirtenak, lisagailuak eta ehizarako puntak, **azagaia** deiturikoak. ETC-entziklopedia

Sarreran %50eko deskontua izango du bisitariak, eta historiaurrean ehizatzeko erabiltzen zituzten lanabesak erabiltzeko aukera izango dute, hala nola **azagaia** eta arkuak. ETC-prentsa

Baita Landuchiok jaso zuen **azagaia** hartan ere. ETC-literatura, saiakera

Txoriz mozorrotutako buruzagi indiar bat agertzen da, **azagaia** eta gerra-tresneria guztia aldean dituela, marra urdinak margotuta eta lumak jarrita pauso handiak ematen ditu pagazi eta ezkurren gainean kanaberadi kurruxkariaren barruan. ETC-literatura, saiakera

Puntuak jaso beharrean, **azagaiak** jasoko dituzte taldeek: **azagaia** antzinakoek ehizatzeko erabiltzen zuten bultzagailua da. ETC-prentsa

Arkuak, nola ez, egurrezkoak izango dira, **eta** baita azagaiak edo lantza arinak ere. ETC-prentsa

Bultzagailua eta **azagaia** erabiliko dituzte gaur, eta arkua eta geziak bihar. ETC-prentsa

Aurkitutako beste pieza **azagaia** bati dagokio, eskuz botata edo lantza baten buruan jarrita jaurtitzen zen tresnari. ETC-prentsa

Gezien eta **azagaien** puntak egiteko, berriz, animalien hezurrak erabiltzen dituzte. ETC-prentsa

---

azahar *iz* laranjondoaren lorea.

Ez sentitzea beste zaporerik aroaren epelaren baitako laranjondoen **azahar**-lorearena baino. Juan Garzia

Ilarrak arrautza egosiarekin, arto pastela esnetan eta **azahar** lorearekin, nektarinak, marrubiak eta baso bete Malaga. Koldo Izagirre

Ekarri zioten, garbi-garbia, zetazko soineko zuri garden batez jantzia, **azahar** lurrin gozoz oparo bustia. Juan Martin Elexpuru

---

azai *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* oilagorra.

Oilagorra, beste izenez bekada edo **azaia** ("Scolopax rusticola") scolopacidae familiako hegazti zangaluzea da. ETC-entziklopedia

---

azaina ik **azaña**.

---

azakoba *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* aza mota *(Brassica oleracea* var. *capitata)*.

Aza, edo zehatzago izateko buru-aza, azaburua edo **azakoba** ("Brassica oleracea var. capitata") aza landare mota biribila da, aza-hostoak buru trinko baten bilduta dituena. ETC-entziklopedia

---

azal 1 *iz* zuhaitz eta zuhaixken enbor eta adarren kanpoko estalkia.

Gogorrena 1961a izan zen, ama gosez hil baitzitzaien: seme-alabei urki **azaletan**, aihen zukuz idazten erakutsi zien emakumea. Pablo Sastre

Noizean behin, gure babeslekuaren kontra jotzen zuen balaren batek, eta **azalaren** puska bat erauzten zion arbolari, soinu beldurgarria eginez. Inazio Mujika Iraola

Ohitura finkoak zeuzkaten antzinatik, eta nekez aldatuko zituzten eguneroko zereginak: arratoiak harrapatu eta larrua kentzea, eta palmondoen **azalekin** sokak egitea, gero saltzeko hurbil pasatzen ziren karabanei. Jon Arretxe

Sua ardaila eta silexez eginez, patata-ogia janez, ezagutu zituzten urte oso gogorrak: lastoa, zuhaitz **azalak** eta larrua janez bizi izan baitziren. Pablo Sastre

Ikusten al duzue zuhaitz honen **azala**, urratuta bezala? Bernardo Atxaga

2 *iz* fruituen eta kidekoen kanpoko estalkia, bereziki gogorra ez dena.

Ur lohitsua, kolore askotako zaborrak: tomate **azalak**, perrexil hondarrak, lurra eta lokatza nahas-mahas. Patxi Zubizarreta

Amama zaharrak laranja atalak, aza garak, banana **azalak**, patata kaskarrak, baba baltzak, mahaspasa maskalak, sagar makatzak, basaran garratzak... danak nahas-mahas, askara daramatza. Iñaki Arranz

Eta misterio hori hain da laket, nola baitira Boswell-ek hausnargai utzi dizkigun aieruak, alegia zertarako erabiltzen ote zituen Johnson-ek bere poltsikoetan gordetzeko ohitura zuen laranja-**azal** idorrak. Juan Garzia

3 *iz* zenbait janariren kanpoko estalkia.

Kitto gazteluak eta printzesa sorginduak eta intxaur **azalaren** barreneko magia ere. Fernando Rey

Lenin mahai azpian dago, krax-krax-krax ahoarekin kakahuete **azalak** txikitzen. Jokin Muñoz

Urte berritze inguruko orrits eta festa pagano askotan, neska mutilek elkarri hur **azalak** jaurtitzeko ohitura ere zabaldua omen zen Pirinioz alde bietan, amodiorako jolas edo amu gisan. Patziku Perurena

Baina Montse uholde bat zen, esana dut, eta ezer gutxi zezakeen ni bezalako intxaur-**azal** batek itsas ikara hari aurre egiteko. Joan Mari Irigoien

Aurrezki-kutxako langilea, txakurrarekin eta andregaiarekin etorri, morroiari eskatu lukainka-**azalak** txakurrarentzat eta aldizkari zarpail batzuk andregaiarentzat, eta gero biez erabat ahazten zena, jokoaren grinan. Anton Garikano

Burua erdi jaso dut haren aurpegira begiratzeko, eta ikusi dudanak ere areagotu egin du nire abaildura, arrautzaren **azala** bezain soil geratzen ari baitzaio burua. Berria - Kirola

4 *iz* gizakiaren eta zenbait animaliaren gorputzaren kanpoko estalkia. ik **larru**.

Azala uste baino azkarragoa dut, dohaikabe! Michel Oronoz

Zaila egiten zait pertsonen adina kalkulatzea, baina arlote hark nahiko zaharra zirudien; halako itxura ematen zioten, behintzat, goizean agerian geratu zitzaizkion ile-adats zuriak eta **azaleko** zimurrek. Jon Arretxe

-Begira, ama, Esau iletsua da eta ni, berriz, **azal** leunekoa. Jose Antonio Mujika

Lehenik, lirio koloreko **azal** horrek, begi leun horiek, hegalak imitaezinak dituen sudur horrek, ertzak horren markatuak ageri dituzten ezpain horiek, hazpegien eztitasun konplexu horrek badute begitarte itxurosoenak ere zertaz itzali. Joxan Elosegi

Leireri berehala antzeman zioten denek oso gustuko zituela otarraintxoak, bere platera itsaski hauen **azalez** bete baitzen azkar. Aitor Arana

Henne ijito bat bezain beltza zen, aurpegia estua, zuloak masailetan, ihar-iharra: hezurra eta **azala**. Koro Navarro

5 *iz* liburu baten gaineko eta azpiko orriak, gehienetan barrukoak baino gogorragoak direnak; batez ere, gaineko orria.

Gure esker bereziak Nestor Basterretxeari, espresuki egin duelako liburu honen **azala**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Urre kolorean grabatutako **azaleko** arranoak hegan egin behar duela dirudi, armarri nazionala umezurtz utzita. Iban Zaldua

Liburuaren **azalean** jarriko dut argazki hau. Xabier Etxabe

Eskutan daukazun liburuaren **azala** altxor ezezagun bat balitz bezala duzu begiratzen. Ramuntxo Etxeberri

Azal gorriko liburu bat izango dut aurrean, mahai gainean. Eskarne Mujika

6 *iz* aldizkari, egunkari eta kidekoetan, lehen orria.

Eta aldizkariaren **azalean** Annapurna eta Nanga Parbaterako espedizioak ikusi zituen eta Annapurnaren irudia, zeru baxu baten ondoan. Unai Elorriaga

Hasierako ETAkoek **azal** zuriko sakelako liburuxka bat zuten lagun, Liburu zuria izenarekin ezaguna zena. Joseba Zulaika

Azala ere diseinatu zuen: Joana eta abeslaria paparazziz inguraturik elkarri musuka. Antton Olano

7 *iz* zerbait biltzen duen zorroa.

Soinean koltxoi **azalarekin** egindako alkandora zekarren, berak josia. Koldo Izagirre

Koltxoia **azalik** gabe zegoen, eta maindire marradunak chiffonierraren gainean zeuden, bi burkoren ondoan. Koro Navarro

Azala tarratatu eta zabaldu egin zuen, eta laster batean irakurri. Mirentxu Larrañaga

Begirada, berriz, galdu egin zaio nire eta lorontziaren arteko punturen batean, eta begipean dituen **azal** malguko bi poltsatxoek areagotu egiten diote begiradaren iluna. Anjel Lertxundi

Nire Astra bederatzi milimetroko dotorea, kirten-**azala** bufaloaren adarrez egina zuena. Edorta Jimenez

8 *iz* zerbaiten gaineko eta kanpoko aldea; itxura. ik **gainazal**; **lurrazal**.

Lur-**azalak**, jasotakoaren ia erdia ematen dio aireari. Pello Zabala

Hizkera honek, **azalez** eta funtsez, goragaleak piztu ditu nigan. Txillardegi

Azala horia dik eta haren egurra den azkarrenetarik duk. Aurelia Arkotxa

Zer zioten behiala, **azala** mamiari zor? Jose Angel Irigaray

Oihanak eta abereak salduko zituen, elgeak eta landak suntsituko, baina oroz gainetik dorretxe hura harriz harri desegin zezaten aginduko zuen, lurraren **azaletik** desagertarazi nahi zituzten etsaiak behin betiko ezeztatu nahi zituztelarik, behiala jendeek egiten zuten bezala. Elena Touyarou

Ez lur **azalean** ez itsas hondoan ez duzu haren parekorik topatuko. Patxi Zubizarreta

Autoen gurpil **azalekin** abarkak egiten hasi zen. Iñigo Aranbarri

Horregatik egin beharko dugu ahalegin handia Gogojardunak geureganatzeko, **azalean** gelditu gabe. Patxi Altuna

9 *izond* azalekoa, sakontasun gutxikoa.

Sakonean, berriz, metro bete ur hartzen du alde **azalean**, eta barrenean sartu ahala hiru metro baino gehiagora iristen da beste muturrean, tranpolin koxkorraren azpiko aldean. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ez da hor bukatzen historia, lagunak -esan zuen Joanesi begira, irribarre **azala** marraztuz-. Felipe Juaristi

Edateko berriz ura, putzu **azal** batetik, idiekin, kupel batean ekartzen ziguten. Pablo Sastre

10 ***arrautza-azal***

Elurra artean lokazten hasi gabea zegoen, eta Noraren oinetakoek **arrautza-azalen** kraskadura bezalako soinua ateratzen zuten elurra zapaltzerakoan. Anjel Lertxundi

11 ***atzeko azal***

-"Hogwartseko prefektuen eta geroko ibilbideen azterketa" -irakurri zuen Ronek ozen **atzeko azalean**. Iñaki Mendiguren

Harryk liburuaren **atzeko azalari** begiratu zion eta Londreseko Vauxhall Road-eko aldizkari-saltzaile baten izena ikusi zuen inprimatuta. Iñaki Mendiguren

Azpeitiko seme Jose Artetxenekoak liburu asko idatzi zituen, horietako bat El gran asombro izenekoa, eta liburu horretan ni gehiena asombratzen, harritzen eta harri bihurtzen nauena da **atzeko azalean** autorearen aurkezpen gisa ageri den hauxe: Iñaki Segurola

12 ***azal aitzurtu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Erabiltzen dugun beste teknika bat ereite faltsua da: lurra landu eta ureztatu, bertan gordeta dauden milaka haziek ernetzeko aukera izan dezaten, eta ernetzen direnean, jorratu edo **azal-aitzurtu** egiten da lurra. ETC-prentsa

13 ***azal apainetan*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Laster batean negua ekarriko du, eta kaleak jaki edo diru eske dabiltzan neska-mutil zarpailtsuez eta **azal-apainetan** hazi ez diren emakume abandonatuez beteko dira. ETC-prentsa

Ukatu egin du azken urteotan EAEko PP? **azal-apainetan** ibili? izana, eta alderdiak kudeatu duen dirua herritarrek ordaindutako zergetatik lortu dela esan du. ETC-prentsa

141 ***azal eta hezur*** hezur eta azal.

Haragi-mamiak higatuta, ez zen azal eta **hezur** besterik. Askoren artean

15 ***azal eta mami*** *adlag*

Lyssenkoren adierazpenak irakurtzean, garbi ageri da, **azal eta mami** , haren ezgaitasun erabatekoa, haren ezjakintasuna. Juan Garzia

Baina **azal eta mami** aldatuko da aurrerantzean aldizkaria. Berria - Euskal Herria

· Baina **azal eta mami** hartuta etortzea bere mundura, dena hankaz goratzea zen hori. Anton Garikano

16 ***azal freatiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Bestalde, petrolioak **azal freatikoa** hunkituko luke, eta inguru guztiko ura eta lurra kutsatu. ETC-prentsa

Landesetako lurretako **azal freatikotik** hartu ura edateko mailan ezarriko dute lantegi horretan; ur horretatik urtean bi milioi metrokubo erosiko ditu Errobiko ur sindikatuak. ETC-prentsa

Albo-ondorioak sortzen ditu: hala nola, draga burutzen den eremuetatik gora erosioa, ubidea hondoratzea eta irregulartasunak hondoan, **azal freatikoa** jaistea (eta ondorioz ureztatze-putzuak lehortzea), zubi eta harri-lubeten euskarriek egonkortasuna galtzea, eta abar. ETC-prentsa

Eremu malkartsuetan izan ohi den patologietariko bat **azal freatikoak** dira, hobiak husteko arazo larriak eragiten baitituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurpean ura izatea (putzuak, ur-lasterrak, edo, besterik gabe, **azal freatiko** bat): etxea eraiki bitartean, agorrarazi edo desbideratu egin behar da ura, eta, ondoren, perimetroko itxiturak iragazgaiztu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lursail beretik, **azal freatikoak** eta iturburuak badaudelako. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 ***azal gaizto*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Etxaurre hartatik bertatik ikusi zuen aitonak Anaren aita ere - **azal gaiztoko** tipoa bera-, beste haiek bezala zuloan sartzen, sekulako atxurrarekin eta asuna baino kanta berdeago bat ezpainetan. ETC-literatura, saiakera

18 *azal-gorri* ik **azalgorri**.

19 ***azal gorriko***

Arasatik **azal gorriko** liburu bat hartuta, mutilari eman zion Louk, esanez. Koro Navarro

Azal gorriko liburu bat izango dut aurrean, mahai gainean. Eskarne Mujika

Bi metro luze da, **azal gorrikoa** eta bi adar motz dauzka kopetan, hori bai. Aitor Arana

Ba zirudien bere gogoa oro irakurtzen ari zen liburu lodi, **azal gorrikoan** zedukala, baina gizonak begiratzen ziolarik, begiak eraiki zituen haurrak eta so egin zion aita besoetakoari irribarre herabeti batekin. Anjel Lertxundi

20 ***azal-gorritze***

Alabaina, osasun iturri izateaz gain, arriskuak ere baditu, ez soilik epe motzekoak (erredurak, **azal-gorritzeak** , alergiak), baita epe luzekoak ere, hala nola, ikusmen arazoak eta azaleko gaixotasunak (azalaren zaharkitze goiztiarra, edo azaleko minbizia, besteak beste). Berria - Harian

21 ***azal gorrixka***

Gizonak **azal gorrixka** eta beltzarana zuen, baita begi urduriak ere, eta haietatik hurbil sudur zorrotz eta delikatua. Lopez de Arana

22 ***azal-hegal***

Kontrasteagatik, bitxitasun hori morboz hornitzen du Mendiguren hartzen ari den lekaide itxura kezkagarriak, liburuaren **azal hegaleko** argazkian nabari. Xabier Mendiguren Elizegi

Labajosen liburuak Martin Jauregialtzok idatzitako hitzaurrea du, eta Salamerorenak JosAnton Artze eta Iñaki Bastarrikaren testuak ditu lagun, **azal-hegaletan** eta kontrazalean hurrenez hurren. Berria - Kultura

Nire helburua lortzeko, biharamunean gazte haren liburua erosi, eta buruz ikasi nuen **azal-hegalekoa** . Ramon Saizarbitoria

23 ***azal hori***

>Baina hobeto pentsatzeari ekin nionean jabetu nintzen jatetxe hartan zerbitzariak neska txinatarrak zirela, denak ttiki samarrak, **azal horikoak** eta sari gorri zilarreztatua janzten zutenak. Joxemari Iturralde

Entzun egiten zuen, ondoko andrearekin hizketan hasten zen, langileren baten emazte **azal-horiarekin** , esaterako, zeinak galbahea bezain zulaturiko muki zapiak eta galtzerdiak ateratzen baitzituen listariz konponduriko saski txiki batetik, pasarazteko asmoz. Karlos Zabala

24 ***azal-ilun*** *izond*

Senako ferry batean ikusi zuela Marie Rogêt, delako igandean, gazte azal-**ilun** batekin. Koro Navarro

Badakizu, haurtzain azal-**ilun** horietako bat eduki izan du, betiereko mammy edo inude beltz horietakoa. Mirentxu Larrañaga

Zorionekoa, zu, Walter Williams azal-**iluna** delako. Mirentxu Larrañaga

Provenceko neska azal-**ilunen** gisakoak. Karlos Zabala

Emazteak [...] berriketan jarduten mutil mandatariekin eta emakume latsari azal-**ilunekin** . Mirentxu Larrañaga

25 ***azal lodia izan*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Eta denengana jiratuta **azal lodia izan** zuen azaltzeko nik lagun hurkoari lapurtzeko eritasuna nuela zeren eta gixajo honek burmuina harjoa dut eta berak ez zuela kulparik. ETC-literatura, saiakera

Oscarrak ikusita batek pentsa dezake aktore guztiak aberatsak, ederrak eta zoriontsuak direla, eta ARCOren inguruan esaten denarekin, artista orok **azal lodia izan** , margo bote bat mihise baten kontra bota eta ehun mila eurotan saltzen duela. ETC-literatura, saiakera

26 ***azal-mami*** *pl* azala eta mamia.

Azal-mamiak jan dizkit, hezurrak hautsi. Elizen arteko biblia

Bakerren hitzen **azal-mamiak** interpretatuz. Edorta Jimenez

· Milaka tona plastiko, beiraki, **mami-azal** ustel Gernikan. Iñigo Aranbarri

27 ***azal polit***

Liburu baten ertza agertu zen; azala gero, **azal polit** gorri-iluna, ahuntz-larru pikortatuzkoa; eta, azkenik, liburu osoa, kutxatik kanpo itzuri, eta han joan zen uretan gora. Jon Muñoz

28 ***azal suprarrenal*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Giltzurrun gaineko guruin bakoitzak bi zati ditu: **azal suprarrenal** , azaleko zatia edo giltzurrungaineko azala eta barneko zatia, muina deritzona. Zati bakoitzak berezko hormonak ekoiztu eta jariatzen ditu. ETC-entziklopedia

29 ***azala azalarekin*** *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Cortazarrena:" Neguak gauzak zailtzen ditu, udan hain egoten gara mundutik gertu, hain **azala azalarekin** ". ETC-prentsa

Kabitu ere egiten ez garen Nikaraguako "autobusito" batera sartzen bagara, denok elkarren gainean goaz, izerdia izerdiarekin eta **azala azalarekin** , eta ondokoekin hizketan bukatzen dugu. ETC-prentsa

Bion ahoak erdi zabalik, erdi arnasestuka erdi hasperenka, erdi nekatuta erdi atseden gozoan, **azala azalarekin** , narrua narruarekin, nire gorputza Edurneren gorputzaren gainean, epeltasuna epeltasunak estalia. ETC-literatura, saiakera

30 ***azala azalaren kontra*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Egun eta gau osoan alborik albo dautza, **azala azalaren kontra** , zodiakoko arrainak bezala gurutzaturik, baten oinak bestearen buru ondoan daudela. ETC-literatura, saiakera

Azala azalaren kontra igurzteko jaidura basa iraganeko kontua bihurtu zen. ETC-literatura, saiakera

Maitemintzea, beste norbaitekin etorkizun bat proiektatzen hastea, **azala azalaren kontra** , arnasa arnasaren kontra, elkar ulertzea, errutina konpartitua eraikitzea, elkar ez ulertzea baina hala ere, inork ulertu ezin duen intimitate hori, hitz, ile eta laztan txikiz osatua. ETC-literatura, saiakera

Eramate-motaren arabera (**azala azalaren kontra** , arropa gainetik, aurrean, bizkarrena....) hainbat abantaila deskribatu dira. ETC-entziklopedia

Azalez azal (eta ez **azala azalaren kontra**) elkarrekin bizi daitezen fisika kuantikoaz mintzatzen den liburua eta erlatibitatearen teoria irmoki defendatzen duena. ETC-prentsa

Azala azalaren kontra -edo alde-. ETC-prentsa

Azala azalaren kontra plazera da, haragizkoa, norbere azala eta lagunarena. ETC-prentsa

"Kalitatezko kontaktua" behar dela zehaztu du Barandiaranek: "Bertan egotea, beldurraren intentsitateak eskatzen duen denboran eta kontaktu fisikoarekin, **azala azalaren kontra** egoteak ematen baitu segurtasuna batez ere". ETC-prentsa

31 ***azala eduki*** *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Azala eduki behar da hitzordua adostu eta ez azaltzeko. ETC-literatura, saiakera

Hori da **azala daukazuna** ! ETC-literatura, saiakera

Sekulako **azala daukazue** ! ETC-literatura, saiakera

Zelan mugitzen den, zelan gorritzen den, zelan lasaitzen den, zelako **azala daukan** , zelako erreakzioak dituen, zer gustatzen zaion eta zer ez, zelako mugak dituen... ETC-prentsa

Denetarako **azala eduki** behar duzu. ETC-prentsa

32 ***azalak hartu*** (ezezko esaldietan, norbait pozez gainezka dagoela adierazteko). ik **kabitu**.

Nik, pozaren pozez **azalak hartzen** ez ninduela, baietz erantzun nion. Fernando Rey

33 ***azaleko*** *izond* sakona ez dena, azalean dagoena.

Apaizak larruazaleko zauria miatuko du; zauri gaineko ilea zuritua badu eta zauria **azalekoa** baino sakonagoa bada, legen-kasua da. Elizen arteko biblia

Beste zenbaitetan, badirudi **azalekoagoak** direla baldintzak. Lourdes Oñederra

Nire alderdi arin eta **azaleko** horrek beti hartuko dio gaina alderdi sakonenari, eta garaile izango da beti. Josu Zabaleta

Poliesterrezko traje zimurtuak (marroiak gehienetan), betaurreko lodi oskolezko erzdunak, buruan zahia beti, eta edozein eratako berriketa **azalekoen** kontrako higuin artegagarri bat. Oskar Arana

Azaleko zauriak baizik ez zizkidan egin lepoan eta besoan. Aingeru Epaltza

34 ***azaleko egitura*** *(corpusean ez dago; ETCn **64** agerraldi)*

Erabat sinetsita nago horren azalpena musikaren egitura sakonak ezkutatzen duela; izan ere, giza psikearen eta musikaren ezaugarri batzuk berberak dira, normalean **azaleko egituran** agertzen ez diren arren. ETC-literatura, saiakera

Hemen esaldien **azaleko egitura** ematen digun arauen sistema batez ari gara, eta eztabaidagai den teoriak esaldien **azaleko egitura** deribazioen bidez ematen dela esaten du. ETC-literatura, saiakera

Azaleko egitura bat indargabetutako margo batentzat, tamainu naturalean, modernitate zaharkituaren estiloan. ETC-literatura, saiakera

Azken batean, **azaleko egitura** bat da, ez duzu lur azpira joan behar. ETC-prentsa

Mekanismo horiek diskurtsoaren **azaleko egituren** rola betetzen dute, diskurtsoari berari lotura emanez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurreko objektuek beren **azaleko egitura** molekularraren arabera islatu eta xurgatzen dute energia elektromagnetikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

3.13 Bakterio-zelulen **azaleko egiturak** eta zelula-inklusioak ETC-zientzia, zuzenbidea

Orduan, Azken 1 hatsarrea proposatzen zuten, **azaleko egituran** subjektu bat ('1 bat', barkatu erredundantzia) egon behar zela esanez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haren hitzetan hizkuntza batzuetan soilik aplikatzen den **azaleko egiturako** murriztapen bat da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zuhaitz berri hori **azaleko egitura** da ("S-egitura" esaten zaio, "azaleko" irudikapen hutsa izateak ez baitio inoiz merezi zuen begirunea eman). ETC-zientzia, zuzenbidea

Hizkuntzaren estimuluak (egitura sintaktikoak) ulertzen ditugunean, hizkuntza ulertzeko sistemak ez du **azaleko egituren** errepresentazio osoa lortzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Biblia-liburu askotan liturgiarako itzulpenak berregituratze-eginkizuna eskatzen du, **azaleko egitura** formala sakon eraldatzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lumak hegaztien **azaleko egitura** keratina keratinotsuak dira. ETC-entziklopedia

Mapa geologikoek arroken ezaugarriak, faila lerroak eta **azaleko egiturak** erakusten dituzte. ETC-entziklopedia

Azaleko egiturak sortu zituzten indarrak zein izan ziren ezagutzea, eta indar horiek aurkitzen badituzte, zergatik amaitu ziren arakatzea. ETC-entziklopedia

35 ***azaleko estilo tektoniko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

"Thin-skinned" estilo tektonikoa edo **azaleko estilo tektonikoa** plaka tektonikoen arteko muga konbergenteetan aurkitzen diren lurraldeetan gara daitekeen eskala handiko deformazio-eredua da. ETC-entziklopedia

36 ***azaleko isurketa*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hiri-drainatze sistema jasangarriak eremu urbanoetan erabiltzen diren euri-urak kudeatzeko drainatze sistema jakinei deitzen zaie; batez ere uraren infiltrazioa bultzatu eta **azaleko isurketa** murrizten dutenei. ETC-entziklopedia

37 ***azaleko kartzinoma*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Urtean eguzki izpiek eragiten dituzten 60.000 heriotzetatik 48.000 melanoma gaiztoek eragindakoak dira, eta gainontzekoak, berriz, **azaleko kartzinomak** eragindakoak. ETC-prentsa

38 ***azaleko minbizi***

Epe luzera, hainbat ondorio izaten ditu eguzkitan luzaroan egoteak: epidermisa eta dermisa mehetzea, elastikotasuna galtzea, zimurtzea eta **azaleko minbizia** izateko arrisku handiagoa, besteak beste. Irene Aldasoro

Erresuma Batuko Marie Curie Ikerketarako Institutuko zientzialariek melanomaren **azaleko minbizi** mota bat beste berezitasun bat aurkitu dute. Berria - Gaiak

-Eta, handik aurrera, antizikloia eguzkiarekin lotuko zuen aitak, eguzkia **azaleko minbiziarekin** , minbizia segurtasun sozialarekin... baita segurtasun soziala politikarekin ere. Joan Mari Irigoien

39 ***azaleko tentsio*** *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Azaleko tentsioa : Material baten kondentsazioak esan nahi du, atomo ioi edo molekulak egonkorragoak direla, antzeko espeziez inguratuta daudenean. Horren ondorioz, **azaleko tentsioa** aldatu egingo da azaleko dentsitatearen aldaketaren arabera. ETC-entziklopedia

Esate baterako, gai da **azaleko tentsioaren** indarrei eusteko, eta orobat jasaten ditu bere ingurunearen gatz-kontzentrazio izugarriak (atzeman da alerik itsasokoa halako bi gazi diren uretan). ETC-zientzia, zuzenbidea

Hormigoi-nahastura baten nahaste-uraren **azaleko tentsioa** murrizteko gehigarria. ETC-zientzia, zuzenbidea

Plastikozko edalontziez egindako zutabetik bat hartu eta ertzeraino Coca-Colaz bete zuen, isurkariaren **azaleko tentsioak** gainezka egin zezala eragozten zuen mugaraino ahalik eta gehien hurbiltzen saiatuz. ETC-literatura, saiakera

Saponinak: glikosido hauek anfifilikoak direnez, ezaugarri surfaktanteak dauzkate (**azaleko tentsioa** jaisten dute). ETC-zientzia, zuzenbidea

Askotan ikusi izan zuen hosto bat Black Riverren ur gainean, uraren **azaleko tentsioa** eten gabe, eta bere gogoa harekin batera joaten zitzaion igerian, gehiago ikusten ez zuen arte. ETC-literatura, saiakera

40 ***azaletik*** *adlag* kanpotik, itxuraz.

Nire herriaren zauria **azaletik** sendatu nahi dute.

Makurtu egin zen, asper-asper eginik ematen zuela, eta oina **azaletik** ukitu zion mahai azpian. Monika Etxebarria

Azaletik begiratuz gero, ia ez genuen antzekorik ezertxo ere. Oskar Arana

Poetikaren gainerakoa tragedia aztertzera dago zuzenduta, eta komedia zein epika **azaletik** jorratzen ditu. Askoren artean

41 ***azalez*** *adlag* azaletik.

Mamiz eta **azalez** bikaina. Koldo Zuazo

Hala, **azalez** behintzat, ez dago funtsezko desberdintasunik bigarren gertakari horren eta lehenaren artean. Isabel Arrigain

Beranduago, eguerdi aldera, hainbat eta hainbat langabetu irtenen ziren kalera, espaloi bazterrera, egunezko kukaratxak, **azalez** ere labezomorro belztuak balira bezala, urtetako lanezak ganoragabekeria mozkortzen ziela. Iñaki Zabaleta

42 *bi azaleko kopeta izan* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Aurorarendako **bi azaleko kopeta zen** uda. ETC-literatura, saiakera

43 *burdin azal* *(corpusean **burdinazal** soilik)*

Tartean, oraindino **burdinazal** dotorekoa den Queen Maryren kulunka lasaian, Bowersek Francoren erregimena onesteko hiru beharkizunak ditu gogoan. Edorta Jimenez

44 *burko-azal*

Burkoa erantzi zuen gero, eta **burko-azal** garbia jarri genion elkarrekin. Anjel Lertxundi

Harryk ikusi zuen **burko-azal** moduko bat zeramala jantzi gisa, beso eta hanketarako zulo batzuekin. Iñaki Mendiguren

Zeraman **burko-azal** zikinaren ertz batean zintz egin zuen. Iñaki Mendiguren

Tintontziari tapa jarri, ohe azpitik **burko-azal** zahar bat atera eta han barruan linterna, Magiaren Historia, bere saiakera, luma eta tintontzia ipini zituen. Iñaki Mendiguren

Adabakiak egiteko bi **burko-azalekin** egin ninan blusa. Anton Garikano

45 *buru-azal*

Atxilotuetako batek **buru-azalean** zauria zuela aitortu zuen Poliziak. Berria - Euskal Herria

-Hermione, katu horrek ia kendu dit **buru-azala** niri! -esan zion Ronek. Iñaki Mendiguren

Buru-azala galtzeko gogoa duzu ala? Julen Gabiria

46 *enbor azal*

Ontzi bat, txalupa bat, **enbor azalez** egindako kanoa bat! Karlos Zabala

47 *garun-azal*

Tarteka, gehiago makurtzen zen xehetasunen bat arakatzeko; ikusten zuena betiko inprimaturik geratuko zitzaion **garun-azalean** . Xabier Olarra

Katu bati edo txakur bati **garun-azala** garunetik bereizten bazaio, animalia gai da, hala ere, errutinazko eginkizun sinpleak ikasteko. Irene Aldasoro

Eta emakumea zorionezko amets ero haiei haize emanez aritzen zen izara azpian, larru barnean txertatuz nahiak eta **garun azalean** ametsak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Izan ere, ez bada soinuen bidez bizkortzen, ume horren **garun-azala** atrofiatu egiten da. Berria - Gaiak

48 *giza azal* *(corpusean ez dago; ETCn 68 agerraldi)*

Giza azala, giza larruazala, azalmintza, azalprintza edo larmintza gizakiaren azala da. ETC-entziklopedia

Ez nuen ukitu ere egin hainbat hilabetez, **giza azala** bezain leuna zen. ETC-literatura, saiakera

Giza azalak ez zuen besterik gabe amore ematen harriaren indarraren aurrean, eta Jacobek berea balitz bezala sentitzen zuen eraldaketak anaiari eragiten zion mina. ETC-literatura, saiakera

Azken hori bai litzatekeela salerosketa paradoxiko graziosoa), alegia, izarak zartagailu horiekin astinduta agian lor liteke zerbait, ganibetaz leundutako **giza azala** erreproduzitzera gerturatu daitekeena. ETC-literatura, saiakera

Hasieran, amak ezetz esan zuen, ez zuela bere burua gai ikusten **giza azala** josten. ETC-literatura, saiakera

Gorri, arrosa, more eta zuri gama osoaz gain, askotariko ehundurak aurkitu zenizkion, likatsuenetatik hasi eta **giza azal** itxurakoetara, eta hasieran mordoiloa iruditu zitzaizunaren forma estilizatu eta orekatua estimatzen hasi zinen. ETC-literatura, saiakera

Berdin gertatzen da **giza-azalez** egindako liburuekin: egon, badira, baina haien inguruan bururatu zaizkidan hilketak fikzioari dagozkio. ETC-literatura, saiakera

Hondakin batzuk dituzte azpian, **giza azala** izan liteke. ETC-literatura, saiakera

Erresuma Batuko ikertzaile talde batek **giza azalaren** antzerako plastikoa aurkitu du, hautsi orduko bere kabuz konpontzen hasten baita. ETC-prentsa

Ileetatik abiatuta **giza azala** sortzea lortu dute Suitzan. ETC-prentsa

Erangikorragoa litzateke **giza azalean** frogatzea. ETC-prentsa

Gainera, hilabeteak eman zituen **giza azalaren** antza izango zuen materialaren bila. ETC-prentsa

Giza azalaren egituratik ahalik eta hurbilen zegoen materiala lortzea zen erronka eta horretarako polimero bereziak garatu zituzten. ETC-prentsa

Giza azalaren zentimetro karratu bateko zenbat molekulek jasan behar dute eragin fotokimikoa, eguzki-erredura nabarmena izateko? ETC-zientzia, zuzenbidea

49 *gurpil azal*

Autoen **gurpil azalekin** abarkak egiten hasi zen. Iñigo Aranbarri

50 *gutun-azal* *(144 agerraldi, 14 liburu eta 7 artikulutan; ETCn 1.553 agerraldi; orobat **gutunazal** 193 agerraldi, 51 liburu eta 8 artikulutan; ETCn 1.250 agerraldi)*

Gutun-azaletako zigiluek. Jon Muñoz

Harryk **gutunazala** urratu, pergaminozko lehen orria atera eta irakurtzen hasi zen. Iñaki Mendiguren

Gutun-azalean amonaren izena irakurri nuen. Jon Muñoz

Hasieran ez zinen izen bat baizik, **gutunazal** batzuetako aurrealdean eta besteen gibelaldean agertu ohi zen izena. Xabier Mendiguren Elizegi

Berak lakratutako **gutun-azal** bera zela. Bego Montorio

Normandiarraren erretratu bat aurkitu zuen, **gutun azal** baten barruan. Karlos Zabala

Orri mordoxka atera zuen **gutunazaletik** . Joxemari Urteaga

Eskutitza **gutunazal** batean sartu eta armarri inperialen zigiluaz lakratu zuten. Karlos Zabala

Gutunazalaren goiko ertzetako batean ageri zen goiburu ofizialari. Josetxo Azkona

51 *hezur eta azal*

Hezur eta azal besterik ez zen, egoera penagarrian zegoen, beldurra eman zien. Karlos Zabala

Garai batean hain gizena zena, orain **hezur** eta azal baitzegoen. Iñaki Mendiguren

Emakumeak, piltzarrez estaliak, **hezur** eta azal. Josu Zabaleta

Bibote exkaxa zuen, hankak **hezur** eta azal. Karlos Zabala

Alkoholikoa aspalditik, **hezur** eta azal, adin handikoek bakarrik begiratzen diote aprentsioz. Bernardo Atxaga

Hezur eta azal baino gehiago duk gure Lisa andereñoa. Karlos Zabala

52 *hezur eta azal egin* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)*

Badakit, onartu zuen Pereirak, joan diren egun hauetako batean elkartu ginen, neska hori **hezur eta azal egina** dago, lehengo bera ere ez du ematen, bizimodu honek ez dio mesederik egiten, Monteiro Rossi, bere osasuna hondatzen ari da, tira, gabon pasa. ETC-literatura, saiakera

53 *hezur eta azal egon*

Bazen denbora pixka bat Harryk ez zuela Scabbers ikusten, Ronen sakela barruan egoten baitzen ia beti, eta ezusteko desatsegina gertatu zitzaion hura ikustea, garai batean hain gizena zena, orain **hezur eta azal baitzegoen** ; gune batzuetan ilea erori ere egin zitzaiola ematen zuen. Iñaki Mendiguren

54 *hezur eta azal gelditu*

Hezur eta azal gelditu naiz! Haiek adi-adi begiratzen didate. Elizen arteko biblia

55 *hezur eta azal huts*

Ez erabat **hezur eta azal huts** , ostera, ze larrupean hanturik nabarmentzen zitzaizkion besoetako giharrak, aparailuetako sokak baino zailduagoak. Edorta Jimenez

56 *intxaur azal*

Egun haietan Indalexio bera ere itsasora irten zen, bere **intxaur azalaren** barruan, bizi ahal izateko arraina ekartzea eta saltzea ezinbesteko zitzaion eta. Edorta Jimenez

Haatik, herstura hertsi hartan eta puntu gaitz hartan, alferrikakoak ziruditen haren manu eta ordenek, zeren **intxaur-azal** bat bertzerik ez baikinen haize haserreen eta uhin are haserreagoen menean. Joan Mari Irigoien

Baina Montse uholde bat zen, esana dut, eta ezer gutxi zezakeen ni bezalako **intxaur-azal** batek itsas ikara hari aurre egiteko. Joan Mari Irigoien

Apenas zen egunik etxera ezer gabe bueltan itzuliko ginenik: harri-kartoizko trikua zela, esne-botilarekiko katua zela, **intxaur-azalarekiko** sagua zela...; eskulan mugikorrak, marrazkiak, margolanak, collageak... Jesus Mari Mendizabal

Idatzi, bakarrik egiten da, baina **Intxaur azal** baten barruan eta Eguberri amarauna liburuaren anonimotasunak borondate kolektibo bat dakar berarekin. Jokin Urain

Kitto gazteluak eta printzesa sorginduak eta **intxaur azalaren** barreneko magia ere. Fernando Rey

Eta egun zoro hark errukirik gabe oinazetu zuen orduz ordu, **intxaur-azal** eskas baten antzera inarrosi zuen batera eta bestera, eta orain Stanislaus Demba nekatuta zegoen, galdutzat eman zuen borroka eta lo egin nahi zuen. Anton Garikano

Intxaur azaltxoa zen Sinbadek askatu nahi zuen ontzia. Edorta Jimenez

57 *itsas azal*

Hobe petretxa egiten, tretzak beitatzen edo sukaldariari laguntzen hastea, inguru guztiak agur egiten baitio atako banda hartu behar duen ontziari: **itsas azalaren** kirru gozoak, farolen izpiek, mendi ilunduek... Koldo Izagirre

Utzi konparaketa merkea egiten: arraina izan, ulertzen? **Itsas azaleko** zirrikituetan eguzki printzei begira, beste zereginik gabe. Lander Garro

"Gizakiak isuritako karbono dioxidoen erdiak **itsas azalean** daude», azaldu zuen Sabinek. Berria - Gaiak

Kaio-saldoa **itsas-azalean**. Joxerra Garzia

Sei hilabete zuela halaber **itsas azala** odolez gorritu zen Enez Eussaren parrean. Itxaro Borda

Jira eta jira aritu ginen, ordubetez beharbada, **itsas azaletik** baino areago itsas gainetik hegan, indargunearen gero eta erdirago, haren barneko ertz beldurgarritik gero eta hurbilago. Koro Navarro

58 *kanpo-azal*

Martinek berak lagundurik ekin nion liburu bakarrean bi ziren haren kanpoko azala bere lehengora ekartzeari, hots, labanaz agerira ekarri zuen bigarren **kanpo-azala** eta beste barru-azala bat egiteari Edorta Jimenez

59 *kartutxo azal* ik **kartutxo zorro**.

Begira, begira, **kartutxo azala**! Joxemari Urteaga

Freddy Greenek eskuekin **kartutxo-azal** gorria jaso eta erakusteko buelta hartu zuenean, zutik ikusi zuen, hiruzpalau metrora, bere eskopeta eskuan zuela. Joxemari Urteaga

60 *lur azal*

Lur azalean, alimaleko matalaza bat, eta kadera. Piarres Aintziart

Antza denez, Hamleteko protagonisten arimak gazteluko gela eta aretoetan ibiltzen dira, baina **lur azalaren** gainean eraikitakoetan bakarrik. Martin Anso

Zaldizko tatariarrez josia zegoen alderdi osoa, eta, batzuetan, lur azpitik sortzen zirela zirudien, euri erauntsiak **lur azalera** erruz ateratzen dituen zomorro kaltegarrien pare. Karlos Zabala

Baina usoa, bere hankak non pausaturik ez eta, untzira itzuli zen, oraindik ura baitzegoen **lur-azalean**. Noek, eskua luzatuz, usoa hartu eta untzi barrura sartu zuen. Elizen arteko biblia

East River ibaia azpitik igaro genuen eta **lur azalera** atera zen metroa. Iñaki Zabaleta

Lur azalari milioika urtetako ibili geldoan sorturiko zimur ezdeusa baino ez. Joxerra Garzia

Hain segur ere, horregatik ditugu hain gogoko ordenamendu juridikoak, **lur azaleko** herri guztiek araubidea nahiago badute ere. Pello Salaburu

Igandean izandako gas leherketa **lur azaletik** bi eta hiru kilometrora izan zen. Berria - Mundua

Berez, **lur azala** baldin badagokio ere, gizakia urpean edo airean bizi baitaiteke. Berria - Kultura

-Batzuek diotenez, Luthek paktu bat egin omen zuen Azpimunduarekin, eta geroztik bere izpiritua han azpian bizi da, bere gorputza **lur azalean** dabilen bitartean. Joanes Urkixo

Hori guztia gertatzen ari zen bitartean, **lur azalaren** gainean, belazean etzanda, honako hau erran zion Nereak Zigorri, haserre bizian adierazi ere. Josetxo Azkona

Nola da posible geu bezalako abortu batailoia agertu izana **lur azalean**? Hori litzateke arazo genealogiko orokorra. Markos Zapiain

Ez **lur azalean** ez itsas hondoan ez duzu haren parekorik topatuko. Patxi Zubizarreta

Apirila zen, eta udaberrian zizareak **lur azalera** irteten ziren. Juan Kruz Igerabide

Lausenguz eta laztanez hazitako hura betiko **lur azaletik** ezkutatu. Gotzon Garate

61 *oilo azal* oilo ipurdia.

Poemaren berrirakurraldi hartan, **oilo azala** jarri zitzaidan. Joan Mari Irigoien

Zurtoinak lodiak eta leunak ziren, eta kiribildurik zeuden, borrokan ari balira bezala; horrek **oilo-azala** jarri zidan. Juan Kruz Igerabide

62 *plater azal*

Begiak **plater azalak** bailiran zabaldu zitzaizkion Mikeli, eta intxaurra eztarrian gora trabatu. Unai Iturriaga

63 *ur azal* *(orobat* ***urazal*** *g.er.)* *iz* uraren azala. ik beherago **27.**

Marinel zaharrak beldur bakarra adierazi zuen behin baino gehiagotan: izotzak ez ote zuen **ur azala** estaliko. Karlos Zabala

Ezkerreko eskua luzatuz urmael baten **ur azala** uki zezakeela. Ramon Saizarbitoria

Ordurako osorik ikusten genuen putzua, **ur azala** arrainek kizkurtua. Koro Navarro

Ontzia, txori arin baten antzera, ziztu bizian zihoan aurrera ispilu-antzeko **ur-azal** geldian. Jose Morales

Ur-azala arrailatzen zuen ferryak laprast egiten zuen eta, mareak bere altzoan eramanik, astiro-astiro iristen zen ontziralekura. Alberto Barandiaren

AdibideaHarri bat jaurti aintzira batean eta uhinak sortzen dira **ur azalean**, eta norabide guztietan hedatzen dira uhinok. Berria - Harian

Produktu kimikoek **ur azalean** uzten dituzten konposatu organikoak xurgatzen ditu landare horrek. Berria - Gaiak

Horrelakoak **ur azalean** geratzen dira, baita ito ondoren ere. Koro Navarro

Kaioen presentziaz ohartu eta haien **ur azaleko** hegadak ikusiz. Pedro Alberdi

Ur-azaleko borrokarako ez daude txarto horniturik U motako itsaspekoak. Edorta Jimenez

Seitik hamar egunerako bitartea behar izaten du gorpuak usteltzen hasi eta, usteltze horren ondorioz, **ur azalera** igotzeko. Berria - Kirola

64 *ur-azaleko arrantza* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi* ***1****)*

Ur-azaleko arrantza: gehienez ere 200 metroko sakonerara iristen da. ETC-entziklopedia

65 *zuhaitz azal*

Lehen jendeak ez zituen bizitzeko ere duintzat hartzen miseriak eta goseak jotako haiek, belarrak eta **zuhaitz-azalak** jaten zituzten haiek, zoritxarrean eta behar gorrian hezur-hutsetan zeudela. Askoren artean

Urratuak genituen jakak, bustiak galtzerdiak eta likatsuak zapatak; goroldio berdea eta **zuhaitz azal** marroia genuen eskuetan eta aurpegian afaltzera eta errieta entzutera etxeratu ginenean. Koro Navarro

Sasiek ileak erauzten zizkioten, bekokiak, enbor gaitzak jotzen zituela, odolez zipriztintzen zituen; ezproiek **zuhaitz azal** zerrendak urratzen zituzten. Josu Zabaleta

Denverrek egunez **zuhaitz-azalen** usaina edukitzen zuen eta gauez hostoena, ez baitzuen lo egiten bere lehengo gelan, bi nebek alde egin eta gero. Anton Garikano

Usain hordigarria zeriok hostaila hezeari, iratzeari, **zuhaitz-azal** puska goroldiotsuen tapiz bigun, labain eta uniformeari. Xabier Olarra

Sua ardaila eta silexez eginez, patata-ogia janez, ezagutu zituzten urte oso gogorrak: lastoa, **zuhaitz azalak** eta larrua janez bizi izan baitziren. Pablo Sastre

Jaramako frontera poz-pozik joandako gazteen historia -**zuhaitz azalean** egindako azken marrazki beltz hura- ez zen ohizkoa osaba Juanen ezpainetan. Bernardo Atxaga

---

azalarazi, azalaraz, azalarazten du *ad* azaltzera behartu.

Orduan ezin baitute apriorizko ezein objekturik **azalarazi** begiespenean. Ibon Uribarri

Hego-haize balek areagotu egiten zuten giroaren xarma; eta koloreen ñabardurak, normalean baino ugariago biderkatzen, eta liluragarriago **azalarazten**. Txillardegi

Jantziak alda daitezke, baina gorpuzkera bera **azalaraziko** da espresabide bakoitzean. Ana Urkiza

---

azalberritu *(ETCn **56** agerraldi, horietatik **36** azken sei urteetan) iz* azala txukundu edo aldatu.

Oteizak ubera sortzen jarraitu zuen gero ere, gu, alegia nahigabe, sagarrondoetarik nesketara **azalberritzen** ginelarik. Koldo Izagirre

Oraindik ere ikusten dira gabineteetan domina **azalberrituak**, kobrea estaltzen duen zilarrezko mintz bat besterik ez dutenak. Iñaki Iñurrieta

Zure bihotza, suge kiribildua bailitzan -beldurra askotan espiral bat da, zabaldu egiten da espiralaren jatorri zehazgabetik-**azalberritzen** sentitzen duzu, azal zaharra eta aztarna zaharrak eguratsa den aztarna mortuen biltegian utziz. Harkaitz Cano

---

azalbide *iz* azalpena.

Arazo gehiegi daude **azalbide** hau doinu gertakarietara oro har hedatzeko. Itziar Laka

Zer **azalbide** emango zenioke zuk jokabide horri? Juan Garzia

Eta filosofiaren barruan, adimenaren erak eta neurriak eta lorpenak -kontzeptu unibertsalak ulertzea, adibidez- eta gure pentsamenduen **azalbideak**. Jenaro Garate

---

azaldu, azal(du), azaltzen **1** du *ad* zerbaiti buruz hitz egin, hura ulertarazteko edo ezagutarazteko.

Honek puntuz puntu **azaldu** zion dena. Askoren artean

Gure proiektua **azalduko** dugu. Herria

Materiak eta energiak zer-nolako lotura duten **azalduko** dute, hala. Berria - Harian

Adibide sinple batekin **azaltzen** saiatuko naiz. Xabier Kintana

Hobe lehenago **azaldu** izan bazenit. Oskar Arana

Horrek gauza asko **azalduko** lituzke. Iñaki Mendiguren

Tratamendu bakarra kirurgikoa zela **azaldu** zien, berak hitz egingo zuela zirujauarekin. Imanol Zurutuza

Ezingo dut inoiz **azaldu** urte hartan sentitu nuen ezintasuna. Lander Garro

Agian, baten batek **azalduko** zion zer zen zirimiria. Lutxo Egia

Eta **azaltzen** zuen ez zela hara joaten politikaz hitz egiten aditzeko, berari "bost axola" zitzaiolako politika. Fernando Rey

2 da *ad* agertu.

Rosario **azaldu** zen portxean. Bernardo Atxaga

Zenbaiten hutsegiteak auzitara baino lehen nabariak izaten dira; beste batzuenak, ordea, ondoren bakarrik **azaltzen** dira. Elizen arteko biblia

Eta, hara non Joantto **azaldu** zen! Elena Touyarou

Belazera iristen ari zela, taketa gehiago, mukerraren azpian bi mutil **azaldu** ziren. Pablo Sastre

Biztanleen bizimoduari horrek zekarkion apustua gorabehera, demokraziaren auzia da aurreneko aldiz mundu osoko mailan **azaltzen** dena. Koro Navarro

Eta, hara, egun batez arrotz bat etxean **azaldu**. Gotzon Garate

3 *agerira azaldu*

Gerra bat irabazten duenak erabakitzen duela nor den biktima eta nor borrero esaten nuen han, horregatik bihurtu zela kontu hori gatazkaren muina, eta komeni zela, justizian oinarrituriko bake bat lortzekotan, estatuaren biktimak ere **agerira azaltzea**. Agurtzane Juanena

Saski baten ondoan, kandela piztu batek kolorezko kanta zoli bat hedatzen zuen inguru beltz hartan, bitxiloreen orban zuri biziak, dalien gorri odolkara, bioleten urdintasuna, arrosen mami bizidunak **agerira azalduz**. Karlos Zabala

Egia maiz mingarri, **agerira azaltzen** denean batez ere. Gotzon Garate

4 *burua azaldu*

-Bere **burua azaltzera** behartu -erantzun zion Lupinek. Iñaki Mendiguren

Goiko bertso horren antzera, badira bere **burua azaltzen** duten testuak. Iñaki Arranz

Gerratik irtetean, ni **burua azaltzen** hasia nintzenean, puri-purian zegoen Lyssenko. Juan Garzia

Eta anaia nagusi Felixek bere **burua azaldu** du, arrazoi duela erakusteko. Itziar Otegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

abokatuak azaldu zuenez (11); **adituek azaldu dutenez** (13); **adituek azaldu zutenez** (15); **agerraldian azaldu zuenez** (11); **alde azaldu da** (15); **alde azaldu zen** (16); **arduradunak azaldu** (20); **arduradunek azaldu** (16); **argi azaldu zuen** (15); **ari direla azaldu** (23); **arrazoiak azaldu** (17); **asko azaldu** (18); **asmoa azaldu du** (26); **asmoa azaldu dute** (18); **asmoa azaldu zuen** (30); **asmoa azaldu zuten** (17); **atean azaldu** (12); **atzo azaldu zuen** (18); **atzo azaldu zuenez** (119); **atzo azaldu zutenez** (34); **aurka azaldu da** (22); **aurka azaldu dira** (12); **aurka azaldu zen** (21); **aurka azaldu ziren** (19); **aurkezpenean azaldu zuenez** (17); **aurrean azaldu** (26)

azaldu ahal (20); **azaldu arte** (13); **azaldu baino lehen** (15); **azaldu baitzen** (14); **azaldu behar du** (15); **azaldu behar izan** (29); **azaldu beharko** (75); **azaldu beharra** (18); **azaldu beharrik** (14); **azaldu bezala** (24); **azaldu den** (26); **azaldu die** (29); **azaldu digu** (63); **azaldu dio berriari** (40); **azaldu diot** (26); **azaldu diote** (16); **azaldu diren** (20); **azaldu dit** (29); **azaldu ditu** (48); **azaldu ditut** (19); **azaldu dituzte** (11); **azaldu du artistak** (13); **azaldu duen** (20); **azaldu dugu** (16); **azaldu dugun bezala** (11); **azaldu dugunez** (14); **azaldu dut** (21); **azaldu duten** (16); **azaldu egin behar** (11); **azaldu ere** (37); **azaldu ez** (41); **azaldu ezin** (17); **azaldu gabe** (43); **azaldu genuen** (14); **azaldu izan** (31); **azaldu nahi du** (11); **azaldu nahi izan** (61); **azaldu nahian** (15); **azaldu nien** (17); **azaldu nintzen** (18); **azaldu nion** (83); **azaldu nuen** (11); **azaldu ohi** (23); **azaldu omen** (13); **azaldu ondoren** (36); **azaldu zaio** (11); **azaldu zela** (21); **azaldu zen atzo** (35); **azaldu zenean** (42); **azaldu zergatik** (12); **azaldu zidan** (106); **azaldu zidanez** (16); **azaldu zien** (112); **azaldu zienez** (21); **azaldu zieten** (22); **azaldu zigun** (44); **azaldu ziguten** (13); **azaldu zion berriari** (39); **azaldu zioten** (41); **azaldu ziotenez** (11); **azaldu zituen atzo** (11); **azaldu zituzten** (38); **azaldu zitzaidan** (22); **azaldu zitzaien** (12); **azaldu zitzaion** (34); **azaldu zizkion** (20); **azaldu zuen atzo** (231); **azaldu zuen bere** (13); **azaldu zuen bezala** (15); **azaldu zuen herenegun** (12); **azaldu zuen jose** (11); **azaldu zuen pepponek** (12); **azaldu zuten atzo** (43)

baikor azaldu zen (17); **baina azaldu** (12); **batean azaldu** (40); **batek azaldu** (22); **batekin azaldu** (13); **batera azaldu** (13); **batzuk azaldu ziren** (13); **behar dela azaldu** (20); **behar duela azaldu** (12); **beharra azaldu** (13); **bera azaldu** (23); **berak azaldu duenez** (12); **berak azaldu zuenez** (17); **berehala azaldu** (16); **berriari azaldu dionez** (35); **berriari azaldu zionez** (27); **berriro azaldu** (30); **berriz azaldu** (14); **bertan azaldu** (15); **bezala azaldu** (19); **bidez azaldu** (25); **borondatea azaldu** (15); **buruak azaldu** (16); **dagoela azaldu du** (13); **dagoela azaldu zuen** (35); **daitekeela azaldu** (11); **daudela azaldu zuen** (26); **dela azaldu du** (47); **dela azaldu dute** (14); **dela azaldu zuen** (197); **dela azaldu zuten** (30); **den azaldu** (35); **dena azaldu** (20); **dietela azaldu** (14); **diola azaldu zuen** (11); **diotela azaldu zuen** (13); **dira azaldu** (11); **direla azaldu du** (35); **direla azaldu dute** (12); **direla azaldu zuen** (100); **diren azaldu** (21); **dituela azaldu du** (17); **dituela azaldu zuen** (50); **dituztela azaldu zuen** (30); **du azaldu** (13); **duela azaldu du** (41); **duela azaldu zuen** (106); **duen azaldu** (22); **dut azaldu** (12); **dute azaldu** (11); **dutela azaldu du** (19); **dutela azaldu zuen** (86); **dutela azaldu zuten** (24); **duten azaldu** (12); **egiteko asmoa azaldu** (21); **egiteko prest azaldu** (17); **egoera azaldu** (20); **erakundeak azaldu** (13); **ere azaldu du** (13); **ere azaldu zen** (13); **ere azaldu zuen** (49); **ere azaldu zuten** (16); **etxean azaldu** (15); **ez azaldu** (13); **ez da azaldu** (17); **ez dagoela azaldu** (11); **ez zen azaldu** (37); **ezer azaldu** (12); **gehiago azaldu** (17); **gero azaldu** (23); **gisa azaldu** (13); **gustura azaldu** (16); **guztia azaldu** (20); **guztiak azaldu** (21)

hala azaldu du (11); **hala azaldu zuen** (26); **halaxe azaldu** (21); **han azaldu** (19); **hark azaldu** (14); **hau azaldu** (21); **hemen azaldu** (13); **honela azaldu zuen** (23); **hori azaldu** (22); **horixe azaldu** (16); **horrela azaldu** (22); **hura azaldu** (13); **idazkariak azaldu** (17); **interesa azaldu** (15); **iritzia azaldu zuen** (11); **iturriek azaldu** (12); **itxaropena azaldu** (17); **itxaropentsu azaldu zen** (11); **izan azaldu** (26); **izan dela azaldu** (25); **izan zela azaldu** (29); **izango dela azaldu** (28); **jantzita azaldu** (12); **jarrera azaldu** (13); **kexu azaldu** (18); **kezka azaldu zuen** (12); **kezkatuta azaldu** (21); **kideak azaldu duenez** (12); **kideak azaldu zuenez** (21); **kideek azaldu** (11); **komisarioak azaldu** (11);

kontra azaldu (24); **lehen azaldu** (12); **lehenago azaldu** (12); **lehendakariak azaldu** (12); **liburuan azaldu** (11); **lopezek azaldu** (12); **ministroak azaldu** (17); **nagusiak azaldu** (26); **nahi duela azaldu** (18); **nahia azaldu** (19); **nola azaldu** (55); **nondik norakoak azaldu** (27); **ona azaldu** (14); **ondo azaldu** (17); **ordezkariak azaldu zuenez** (13); **orduan azaldu** (15); **pozik azaldu zen** (41); **prentsaurrekoan azaldu zuenez** (15); **presidenteak azaldu** (23); **prest azaldu da** (24); **prest azaldu zen** (32); **sailak azaldu** (15); **sailburuak azaldu zuenez** (16); **sindikatuak azaldu** (11); **zehatz mehatz azaldu** (17); **zela azaldu zuen** (71); **zera azaldu zuen** (11); **zergatia azaldu** (21); **ziola azaldu zuen** (15); **zirela azaldu zuen** (30); **ziren azaldu** (18); **zituela azaldu zuen** (13); **zituztela azaldu** (13); **zuela azaldu zuen** (39); **zuen azaldu** (23); **zutela azaldu zuen** (25); **zutela azaldu zuten** (12); **zuzendariak azaldu duenez** (20); **zuzendariak azaldu zuenez** (16)

azalduko da (70); **azalduko den** (15); **azalduko denez** (14); **azalduko dira** (37); **azalduko ditut** (23); **azalduko dituzte** (12); **azalduko dizuet** (13); **azalduko dizut** (38); **azalduko du** (46); **azalduko dugu** (22); **azalduko dut** (44); **azalduko dute** (28); **azalduko ez** (12); **azalduko zela** (15); **azalduko zen** (15); **batean azalduko** (12); **geroago azalduko** (18); **noiz azalduko** (18); **nola azalduko** (26)

azaldutakoaren arabera (58)

azaltzea da (13); **zenbaki baten azaltzea** (13)

azaltzeaz gain (16)

azaltzeko asmoz (15); **azaltzeko aukera** (23); **azaltzeko eskatu** (37); **azaltzeko gai** (12); **azaltzeko gauza** (11); **den azaltzeko** (30); **diren azaltzeko** (13); **egoera azaltzeko** (12); **ez azaltzeko** (14); **hori azaltzeko** (27); **jarrera azaltzeko** (13); **nondik norakoak azaltzeko** (20); **zen azaltzeko** (14); **zergatia azaltzeko** (11)

argi azaltzen (24); **asko azaltzen** (16); **azaltzen ari** (42); **azaltzen baita** (16); **azaltzen baitira** (12); **azaltzen dela** (13); **azaltzen den** (104); **azaltzen dena** (13); **azaltzen denean** (16); **azaltzen denez** (18); **azaltzen digu** (23); **azaltzen dio** (15); **azaltzen dira** (155); **azaltzen diren** (74); **azaltzen ditu** (49); **azaltzen dituen** (25); **azaltzen dituzte** (14); **azaltzen dituzten** (13); **azaltzen duen** (55); **azaltzen duena** (17); **azaltzen duenez** (44); **azaltzen dute** (59); **azaltzen duten** (26); **azaltzen ez** (56); **azaltzen hasi** (41); **azaltzen saiatu** (27); **azaltzen saiatuko** (18); **azaltzen zaigu** (18); **azaltzen zaizkigu** (12); **azaltzen zen** (127); **azaltzen zion** (11); **azaltzen ziren** (68); **azaltzen zituen** (17); **azaltzen zuen** (65); **azaltzen zuten** (16); **batean azaltzen** (16); **batzuk azaltzen** (11); **bertan azaltzen** (16); **beti azaltzen** (14); **bezala azaltzen** (19); **dela azaltzen** (15); **den azaltzen** (23); **dena azaltzen** (11); **diren azaltzen** (12); **ere azaltzen da** (12); **ez da azaltzen** (17); **gabe azaltzen** (14); **gisa azaltzen** (14); **guztietan azaltzen** (12); **hobeto azaltzen** (12); **honela azaltzen** (11); **hor azaltzen** (12); **hori azaltzen** (13); **horrek azaltzen du** (15); **liburuan azaltzen** (14); **nola azaltzen** (16); **non azaltzen** (13); **ondo azaltzen** (15); **ongi azaltzen** (13); **zen azaltzen** (28)

---

azalea *iz* Jatorria Kaukason duen zuhaixka, erikazeoen familiakoa, hainbat koloretako loreak dituena eta oso apaingarria dena *(Rhododendron indicum)*.

Gero paseo bat eman zuten biek parrokian barrena, **azaleek** itzaleztaturiko korridoreetan zehar. Juan Garzia

Bere atzean, **azaleen** artean orkestrak jotzen ari dira, telegrama pribatuak Singapurretik, Valparaisotik, Mukden-etik, Hong Kongetik eta Chicagotik dolarrak klik, klik, klik, klikitzeatzen ari dira. Lopez de Arana

Oso aurpegi eskasa zuela konturatu nintzen: argizarizkoa zirudien, soinean zuen berokia baino zuriagoa, eta haren atzean ikusten ziren loreen kontrasteak -leiho-balkoietan arratsaldeari kolorea emanez, bioletak, ziklamenak, **azaleak** ...- zurbiltasuna areagotzen zioten. Anjel Lertxundi

---

azalean[1] **1** *postpos* beste zerbaiten edo norbaten tokian. ik **azalpean**.

Denboraldi horretan Jimi Hendrixen **azalean** sentitu zara, beti arineketan, zer den ondoegi ez dakizun zer edo zeren bila. Lutxo Egia

Baina esan dezadan, haren aurpegi eztia ikusita, laguna eta maitea nor zituen zein gozo erakutsi zidan entzunda, Hans Lauer edo dena delakoaren **azalean** egon nahi izan nuela neuk ere. Hasier Etxeberria

2 ***azalean sartu***

Harrigarria iruditzen zaidana da zenbat gizonezko ausartu diren emakumezkoaren **azalean sartzen**. Ana Urkiza

Peluka eta pastadun betaurrekoak janztea deliberatu zuen azkenik, bere aspaldiko amets hura (bera zen fisonomista ikaragarriak ere ezagutuko ez zukeen beste baten **azalean sartzea**, -mozorrotzea, hura zen hitza-) gauzatu nahian. Harkaitz Cano

Agirreren hitzak lehen pertsonan irakurtzeari, haren **azalean sartzerainoko** irudia emanaz, Agirreren hitzak Ibarretxeren hitzak bailiran. Berria - Euskal Herria

Lapurren **azalean sartuko** da ikuslea poliziak atzematen dituenean, inmobiliariako gizonarenean emazteak jasan ezin duenean. Berria - Kultura

---

azalean[2] *adlag* azaletik. ik **azal 12**.

Funtsean, funtsean, funtsean... Eta urteekin geroz eta gehiago erabiltzera jo du, gainera, **azalean**, itxuran gauza gehienak desegokiak, deserosoak izango balira bezala. Jokin Muñoz

Zurbila eta hauskorra, **azalean**; diamante bitxiena barnean: berriro hartu zion Imanolek geisha itxura Alazneri. Fernando Morillo

Margak ez zekien, hasiera batean, zerk erakarri zuen ipuin horretan, zer ikusten zien han deskribatzen diren pertsonaia eta egoera **azalean** gatzgabeei. Iban Zaldua

Eta Lujanbio ez da hasiko berak ez duela esan horrelakorik eta tema nahasten, **azalean** ez baitu zer kateaturik sakonean arrazoi duenak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Azalean aski anitza bada ere, "eguneko goi-mailako sukaldaritzak" plater asko-askorik ez du. Edorta Agirre

Edo, azento silabikoak zentzuren bat balin badu, izateko arrazoia du -**azalean** behintzat-, silabaren legeetan hartzen duelako zentzu hori. Isabel Arrigain

---

azaleko ik **azal 11**.

---

azalekotasun *iz* sakontasun gutxikoaren nolakotasuna.

Egia da askok ikasi zutela itxura batean "jarduten" eta gizalegearen kanpoaldeko ezagupen formala behintzat erakusten; eta, hala ere, harrigarria zen haien portaeraren formaltasun edo **azalekotasun** hori bera ere. Xabier Olarra

Eta lehena aipatu den **azalekotasun**-efektua izango da: ideien historian hausturak ugaltzea, historia hutsaren baitan denbora tarte luzeak sortzea. Xabier Arregi

---

azalera **1** *iz* matematikan, irudi geometriko baten luze-zabalaren neurria. Triangeluaren azalera kalkulatzeko.

Batzuen **azalera** eta bolumena kalkulatu zuen, eta besteen bolumenen arteko erlazioak erabaki zituen. Jon Muñoz

Luminantzia, azkenik, objektu argitsuak **azalera**-unitate bakoitzeko duen argi-intentsitatea da; cd/ml gisa adierazten da. Josu Zabaleta

Matematikak ere jarduten du lerroaren eta **azaleraren** arteko bereizketaz, kualitate ezberdineko espazioak diren heinean, eta hedapenaren jarraitasunaz, hau bere kualitatea den aldetik. Ibon Uribarri

Gertatzen da horrekin belaontziekin gertatzen denaren antzekoa, alegia, belen **azalera** zenbatekoa, hortzarena horrenbestekoa. Edorta Jimenez

2 *(Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, magnitudea adierazteko soilik erabili behar da* ***azalera****, beste kasuetarako* ***azal****,* ***gainazal****,* ***eremu*** *eta abar gomendatuz)*.

Ehun baten **azaleran** agertzen den alea, bertan osagai eratzailea izango delarik. Xabier Arregi

Belarri-hegalaren **azalera** irregularrak eragozten du halako gehikuntzak modu jarraituan mantentzea. Irene Aldasoro

Ez da aski esatea banako guztiak **azalera** homogeneo batekoak direla, zeinak egiten duen den guztia zentzu berean esatea. Piarres Xarriton

Informazioa ematen digute gure pentsamenduari buruz, baina ez dira iristen jakinduriaren **azalera** osoa estaltzera. Pako Aristi

Zizareak euri aurreko hezetasunari aise antzematen baitio, eta **azalera** joarazten dio azpitik: baita jakin ere birigarro eta zozoek. Pello Zabala

Beldurra emateko modukoa ia, **azalera** leun eta landua soilik ez den helduleku bat, baizik eta dentsitatea duen gorputz bat. Jon Alonso

3 *azalera polarreko diagrama* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Azalera polarreko diagrama edo arrosa-diagrama zenbakizko datuak irudikatzeko datu-diagrama bat da, sektore-diagrama angeluen eta barra-diagrametan zutabeen luzeraren bitartez, angelu bereko eta azalera ezberdineko zirkulu-sektoreak irudikatzen dituena zenbakizko balioen arabera. ETC-entziklopedia

Hala, grafiko mota berri bat sortu zuen: **azalera polarreko diagrama**. ETC-prentsa

4 *azalera-unitate*

Luminantzia, azkenik, objektu argitsuak **azalera-unitate** bakoitzeko duen argi-intentsitatea da; cd/ml gisa adierazten da. Josu Zabaleta

---

azaleramendu *(corpusean ez dago; ETCn **80** agerraldi)* *iz* lur azpiko masa mineral batek aire zabala ukitzen duen tokia.

Egiptoko **azaleramendu** batzuk izango dira San Telmo hondartzako itsaslabarraren aurkari nagusiak. ETC-prentsa

Zumaiako flysch-arekin, lur **azaleramenduarekin**, 60 milioi urte egin daiteke atzera, bitarte horretan Lurrak izan dituen gorabeherak jaso baitituzte gaur egun itsaslabar diren horiek. ETC-prentsa

Zumaiako **azaleramenduko** marraren gainean geruza beltza beste kalte baten erakusle da, inpaktuaren ondorengo sute erraldoien kedarrez osatuta baitago. ETC-prentsa

Prozesu bera izan zen Zumaiako Itzurun hondartzako **azaleramenduan** bi estratotipo ezarri zituena. ETC-prentsa

Nonbait, muga geologikoaz jabetzeko munduko arroka **azaleramendurik** onena da itsasotik metro gutxira tolestuta agertzen diren estratuek osatutakoa. ETC-prentsa

Eta fase berantiar bat, zeinean **azaleramendu**-ereduan gailentzen diren eta eskualdeko ENE-WSW joera sendoari jarraitzen dioten sinforme eta antiforme nabarmenak eratu baitira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azaleramendu naturaletan, kuartzitak eta marmolak antzeko koloreak eta itxura izan ditzakete. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretaz gain, estratotipoak ere baldintza egokiak izan behar ditu aztertzeko, besteak beste, azaleramendua jarraitua eta hiato gabea izatea, bertaratzeko erraza eta **azaleramendu** babestua izatea. ETC-entziklopedia

Azaleramendu nagusiak arroaren mendebaldean daude. ETC-entziklopedia

Azaleramendu bakoitzean Lurraren historiaren kapitulu bat dago, eta, fosilen bidez azaleramenduak elkarren artean erlazionatuz, Lurraren historiaren liburua osatuko dugu pixkanaka-pixkanaka. ETC-entziklopedia

Azaleramendu bat aurkitzean, mapa topografikoan edo airetiko argazkian kokatzen du. ETC-entziklopedia

Sedimentazioa Mesozoikokoa da eta basamentu hertziniarreko materialen **azaleramendu** nahasi asko tartekatzen dira. ETC-entziklopedia

Krakoviako (Polonia) Vistula ibaiaren ezkerraldeko ibarrean, kareharrizko **azaleramendu** baten gainean, mende askotan zehar eraikitako gune arkitektoniko gotortua da, 228 metroko altueran. ETC-entziklopedia

---

azaleratu, azalera(tu), azaleratzen da/du *ad* azalera agertu edo atera.

Nire literaturak sentimenduak **azaleratu** nahi ditu. Ana Urkiza

Eta kontua da testuak **azaleratzen** duen eztabaida eguneratu horren aurrean ikuspegiak desberdinak direla oso. Iñaki Heras

Finantza-ahalegin izugarri hark arazo handiago bat **azaleratu** zuen. Koro Navarro

Susmo bat **azaleratu** zen, isilune labur bat musikaren erdian. Fernando Rey

Olatz gidariaren atzean beste Olatz bat ezkutatzen zen, ordura arte **azaleratu** ez zena. Harkaitz Cano

Baina ez zuen utzi batere **azaleratzen** sentitzen zuen zirrara hori. Karlos Zabala

Bazuen, hondoan, sen halako bat, amnesian galdua egon arren, irmoki **azaleratzen** zena. Aritz Gorrotxategi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **asko azaleratu** (4); **azaleratu da** (6); **azaleratu dira** (4); **azaleratu diren** (3); **azaleratu dituen** (3); **azaleratu dituzte** (5); **azaleratu du** (6); **azaleratu dute** (7); **azaleratu egiten** (3); **azaleratu nahi** (14); **azaleratu zen** (13); **azaleratu zenean** (3); **azaleratu ziren** (11); **azaleratu zituen** (7); **azaleratu zitzaion** (3); **azaleratu zuen** (18); **azaleratu zuten** (4); **berriz azaleratu** (3); **datu larriak azaleratu** (4); **ere azaleratu** (4); **ezina azaleratu** (3); **larriak azaleratu ditu** (3)
>
> **azaleratuko dira** (3)
>
> **azaleratze gune** (3)
>
> **azaleratzen ari dira** (3); **azaleratzen da** (17); **azaleratzen den** (4); **azaleratzen dira** (11); **azaleratzen diren** (6); **azaleratzen ditu** (4); **azaleratzen dituen** (5); **azaleratzen du** (8); **azaleratzen duen** (3); **azaleratzen dugu** (3); **azaleratzen dute** (3); **azaleratzen hasi ziren** (3); **azaleratzen saiatuko** (3); **azaleratzen zen** (3); **azaleratzen ziren** (3); **bertan azaleratzen** (3); **bidez azaleratzen** (3); **buru handiak azaleratzen** (3); **egon ondoren azaleratzen** (3); **ere azaleratzen** (3); **handiak azaleratzen hasi** (3); **ondoren azaleratzen bada** (3); **xuxurlen mundua azaleratzen** (3)

---

azaleratze *iz* azalera agertzea edo irtetea.

Eraketa hau bermatzen da **azaleratze**, mugarritze eta zehaztapen instantzia batzuen arteko harreman-multzo baten bidez. Xabier Arregi

Claudio Magrisek dio apokalipsia beste zentzu batean ere ager daitekeela, greziarrek ikusten zuten moduan: errebelazio moduan, azpian dagoen zerbaiten **azaleratze** moduan. Berria - Kultura

Eraketa diskurtsibo bati buruzko zenbait **azaleratze** ezberdin deskriba daitezke. Xabier Arregi

---

azaletiko *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)* *izlag* azalekoa.

Hasieratik gustatzen bazitzaidan ere, **azaletiko** harremana izan genuen ordu arte, egoerak ikaragarri mugatu gintuelako. ETC-literatura, saiakera

Palestinako auziaren inguruko gertaeren **azaletiko** begiratuak erakusten du Palestinaren galera ekarri zuten erabakirik kritikoenak atzerrian hartu zirela. ETC-prentsa

Azaletiko entzunaldi hartan ulertu nuen zergatik hautatzen ditudan ahots sufrituak (Cesaria bera, Xalbador, Anari, Xabier Lete, Chavela Vargas...), une tristeetarako: argiak ilunean bezain ongi inon argitzen ez duelako. ETC-prentsa

---

azalezin *iz* azaltzen ezinezkoa dena.

Energia ezkutuko eta **azalezin** bat. Harkaitz Cano

Bestela esanda, osagai-egituraren arabera arrazoigabea eta **azalezina** dirudien hizkuntz jokabide jakin batek erraza eta ereduzkoa ematen du ikuspuntu formaldatzailea onartzen dugunean. Itziar Laka

Iragan **azalezin** haren, ni sortu aurretik bizi izan zuten ukaldi andana haren aurrean zer proposa nezakeen nik, galduriko eleen bilaketari haztamuka baina setati lotzea baino? Joxan Elosegi

---

azaleztapen *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)* *iz* liburuez eta kidekoez mintzatuz, azala jartzea.

Inprimaketa eta **azaleztapen** aldetik hala moduzkoak, baina bidea irekitzeko ezin baliagarriagoak gertatu ziren banku horren laguntzaz argitaratutako liburuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Halere, ezin da gauza bera esan beranduagoko **azaleztapen**-lanei dagokienez, mozturik utzi baitzituzten orrialde-bazterretako aipamen eta eskuzko zuzenketa nahikotxo22. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edizioren aurkezpenari dagokionez, **azaleztapena** estalki bigunean egina zegoen. ETC-entziklopedia

1895an **azaleztapen** berri bat burutu zen, baina oso azkar hondatu zen. ETC-entziklopedia

---

azaleztatu, azalezta, azaleztatzen du *ad* *(corpusean jokatu gabeak ageri dira soilik)* liburuez eta kidekoez mintzatuz, azala jarri.

Geometria, bereiz **azaleztatutako** alea. Jon Muñoz

Joste-harien puntuetan, ordea, papera ez zegoen moztuta, etenda baizik: nabarmena zen lan hura egin zuena hariak mozturik **azaleztatze**-lana itsusteko beldurrez aritu zela. Anjel Lertxundi

---

azalgai *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)* *iz* azaltzen denaren gaia. ik **idazgai**; **aipagai**; **mintzagai**.

Julen Urkiza edo frai Julian Jesus-Haurrarena karmel izenez ezagun den apez ikerlariak dituela urte zenbait ageri bere Karmeldarrak Markinan lan mardul eta jakintsuan beste egile baten aukera eman zuen, hau da, frai Frantzisko Gurutzekoa izeneko beste arabar baten hatz argigarria eskaintzen digu **azalgai**. ETC-literatura, saiakera

---

azalgain *iz* gainazala.

Sorterria, itsaso zabal eta ilunaren bazterrean, itsaso beti jazarleari paparra ematen zioten harritzarren magalean, olatu etengabeen mugan, argi dirdirkari bolada bat besterik ez zen, han atzean ezkutatzen, uhinak tolestuz etzaten diren lekuan, munduaren **azalgain** urrunean. Joseba Sarrionandia

Beraz, gizartearen azal-**azalgaineko** aparra da. Joxe Azurmendi

---

azalgaitz *iz* azaltzen zaila dena.

Handiak eta **azalgaitzak** dira zure erabakiak; horregatik desbideratu izan dira hezigabeak. Elizen arteko biblia

Argitasuna apurka-apurka hazi zen, eta tupustean larritasun sentimendu **azalgaitza** nagusitu zitzaion. Agustin Otsoa

---

azalgarri *iz* zerbait azaltzen duen gauza.

Era berean, pasarte horren **azalgarri**, esan zen: Xabier Kintana

Aztaletatik bost zentimetro baino goragoko gonarik ez erabiltzea -hemen dago aztalen lizunkeria uxatzeko erremedio segurua eta zuzena, pentsamendu lohiak baztertzeko zinta metrikoz neurtutako larruazal **azalgarria**, erakuts daitekeenaren neurri zuzen eta egokia. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

azalgorri *izond* azal gorria duena.

Harrizko egitura abandonatu bat, **azalgorriek** erabilia lurraren jabe zirela uste zuten garaietan. Anton Garikano

Azalgorri, Ipar Ameriketako indioa, azal gorria ez duena... ez kanpo aldetik, behintzat. Xabier Olarra

---

azalili *iz* azalorea.

Bestalde, ikerketa batzuetan agertu da berriki konposta ongailuak lur barnean jarriak direlarik, zanahori, lur sagar eta **azalilien** lur azpiko parteen axaletan elementu metalikoak eta "HAP" deituak agertzen direla. Herria

---

azalkatu, azalka(tu), azalkatzen du *ad* azala altxatu, zartatu.

Bizkarreko margoa **azalkatua** zuen aulkiak, gizaseme bitxi haren bizkarrezurraren erradiografia emanez. Harkaitz Cano

Oraintxe begien aurrean banu bezala oroitzen dut gela hartako paretek zuten hormapapereko marrazkia: arrain ttiki pila bat ziren, hondo urdin **azalkatuaren** gainean. Harkaitz Cano

---

azalkeria *iz* azalekoa denaren nolakotasuna.

Askotan kritikatu izan zait pertsonaien psikologian sartu ez izana eta **azalkeriatzat** jo da. Ana Urkiza

Emakumeen maitasunaren sakonera edo **azalkeria** baino gehiago berezko jai-dura al zen kontua? Ibon Uribarri

Alabaina, egiaren mesede esan beharra dago ez zela aritu putatan edo **azalkeriatan** gainerako gizonak baino askoz gehiago edo neurriz gorago. Bego Montorio

Akabo **azalkeriak** eta disimuluak handik aurrera. Hasier Etxeberria

---

azalki *(corpusean ez dago; ETCn 4 agerraldi)* **1** *iz* bilgarria.

Bil ta Garbik anbizio eskasa erakutsi du **azalkien** birziklatzea % 25era mugaturik. ETC-prentsa

2 *adlag* azaletik.

Baina zein **azalki** gerta daiteken sentitzen duguna itxurakeria makurrean adierazit: hauxe ere biziaren alderdi eta keinu guztien antzera. ETC-prentsa

Konturatu zineten zenbat aldiz errepikatu zuen esaldi baten barruan hitz berbera, azalaren azalean **azalki** mugituz? ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azalkide *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1)* *iz* azalean kide dena.

Senak agindu izan balit bezala, berehala ulertu nuen neuri zegokidala **azalkide** hura atakatik ateratzen laguntzea. ETC-literatura, saiakera

---

azalkiro *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) adlag* azaletik.

Hori bezain egiazkoa da pribilegiatu horiek gizadia berekin arrastatu nahiko luketela; beren arima-egoera guztiei ezin komunikatu ahal izatean bere aspektu sakonenetan, transposatu egiten dute **azalkiro** eta dinamikoa denaren itzulpen bat bilatzen dute estatikoa denean, zeina onartzera gizarteak bere burua eramana ikusiko baitu eta, hezkuntzaren bidez, behin-betiko egitera. ETC-literatura, saiakera

Hemen kontua ez da, lehen une batetan **azalkiro** lirudikeen bezala, hitz hutsetatik, adibidez "Lichtung" (soilgune) hitzetik, irudiketa hutsak ateratzea. ETC-literatura, saiakera

Ahanzteko printzipioez une batez, dio, lepoa bi besoekin inguratuz, eta **azalkiro** laztandu du ezpainetan. ETC-literatura, saiakera

ederkiro, gaingiroki, **azalkiro** ... ETC-zientzia, zuzenbidea

Behar bada lehena baino gutiago eta **azalkiroago** estudiatu dugulako, ez diogu oraingoz berezko nortasun bat atzemateN: lehen partearen imitazio errepikatzaile bat iruditzen zaigu, zentzu nabarmenik gabeko joku baten antzeko zerbait. ETC-zientzia, zuzenbidea

Baina, hauek **azalkiro** esanda, eman diezaiogun hitza Txillardegiri berari. ETC-literatura, saiakera

---

azalmintz *iz* larruazala.

Luis Eduardo Auteren A flor de piel (**Azalmintzaren** azalean), Pio Caro Barojaren El pais vasco (Euskal Herria)... Berria - Kultura

Aurpegiera errusiar-errusiarra zuen, ilehoria eta **azalmintz** zurikoa zen, neba bezain ederra, eta hura bezain soraioa. Jose Morales

---

azalore *iz* aza barietatea, buru zuria eta jateko ona eratzen duen lore mordoa duena*(Brassica oleracea var. botrytis subvar. cauliflora)*.

Azalore txiki bat nahiko nuke, baina hain garesti dago dena... Karlos Zabala

Tomatea, brokolia, **azalorea** , orburua, artoa... dena pikutara. Berria - Euskal Herria

Harantzago, iparmendebalderantz, hodei distiratsu batzuek gorantz egiten zuten hegan, **azaloreen** modura loratuz zihoazela. Lopez de Arana

---

azalpean *postpos* beste zerbaiten edo norbaten tokian. ik **azalean**[1].

Beren sexu izaerarekin gustura ez zeudenak ziren batzuk, emakume izan nahi luketenak eta emakumearen **azalpean** gusturago sentitzen direnak. Harkaitz Cano

Nonahikotasunaren eta putzu agorren antzeko desira bat, maldiziotik asko zeukana, birrintzeko irrikatik, teatro izugarrizkotik; goseak errinozero **azalpean** bezala su hartzen zuen desira bat. Eider Rodriguez

Eta nik al dakit zer ideia madarikatu dabilzkizun buruan azkenaldi honetan, ohean egoten uzten ez dizutenak, piztia gaizto horrek, deabrua gehiago da hori tximino baten **azalpean** , ez du bada jantzi zure txanoa eta gelako jantzia, eta barrez zirudien, gainera, zuri begira, gizon bat konortea galduta ikustea barre egiteko gauza balitz bezala. Josu Zabaleta

---

azalpeko *izlag* azalaren azpikoa.

Lurpeko, sakoneko, ezkutuko, itzalpeko, **azalpeko** , ilunpeko bizi erroen misterioa, kanpora edo argitara ateratzea, horratx funtsean mihurak sinbolizatzen duena. Patziku Perurena

---

azalpen **1** *iz* azaltzea, bereziki zerbait azaltzeko esaten edo idazten dena.

Urs Freuler managerrak eta Alessandro Celli abokatuak eman zituzten **azalpenak** . Berria - Kirola

Ekintza honen **azalpena** , Uztaritzen bertan banatu genuen esku-orri batean horrela agertzen genuen. Herria

Nire **azalpenaren** Bigarren partea filosofikoa da. Xabier Kintana

Azalpenak ematen hasi zen gero. Bernardo Atxaga

Mapek berauen **azalpena** eta leku-izenen aurkibidea daramate aurretik. Askoren artean

Orain inork ez dezala **azalpenik** espero edo agindu Raimundo Silvak egin zuena azaltzeko. Jon Alonso

Halabeharraren esku jartzen ditugu gauzak **azalpenik** aurkitzen ez diegunean. Iñaki Iñurrieta

Edozein **azalpen** emateko prest zaude, baita harreman sexualen eta maitasun librearen gainean dakizun guztia kontatzeko ere. Rafa Egiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aski **azalpen** zirtzila eta funtsik gabea zen. Aingeru Epaltza

Etorkizuneko sistema baterako utziko dut adigai horien **azalpen** xehea. Ibon Uribarri

Baina aurreko **azalpen** laburretik bizpahiru gauza behintzat har daitezke gogoan analogiari buruz. Josu Zabaleta

Irakaslearen eta haren laguntzaileen **azalpen** dramatiko hark marmar handiak eragin zituen; ikasle ausartenetakoren bat txalo egiten ere hasi zen, eta katedradun zaharrak, haserretu ordez, eskertuz bezala agur egiten zuela ikusirik, txalo gehiago egiten zuten oraindik. Josu Zabaleta

Azalpenik zabalenarekin, errazenarekin eta korapiloz askatuenarekin. Jon Muñoz

Arreta osoaz jarraitzen nuen nik osabaren **azalpen** zehatz hura. Txillardegi

Uriartek esandakoak argitze aldera, **azalpen** arin batzuk emango ditut. Koldo Zuazo

3 (hitz elkartuetan lehenen osagai gisa)

Azalpen -lanen ezaugarri ezaguna dugu hau. Itziar Laka

Agian badira fenomeno honen bi **azalpen** -bide: bat soziologikoa eta bestea psikologikoa. Iñaki Mendiguren

Eta bigarren **azalpen** -mota horrek "teologia natural" edo razionalaren izen ezaguna hartu du. Askoren artean

Erizainak **azalpen** saioa moztu zion, eztiki. Itxaro Borda

Baina Dumbledorek eskua jaso zuen **azalpen** -zaparrada hura isilarazteko. Iñaki Mendiguren

4 ***azalpen testu***

Hori dela eta, webgunean bertan musikaren balioari buruzko **azalpen testu** bat paratu dute. Berria - Kultura

5 ***azalpen zientifiko***

Eskemak **azalpen zientifikoaren** egitura logikoa azaltzen zuen. Askoren artean

Kapitainak **azalpen zientifiko** bat zuen ni konbentzitzeko. Fernando Rey

Eta bilbea, berriz, deskribapen geografikoak, **azalpen zientifikoak** . Karlos Zabala

Egoera horren **azalpen zientifikoren** bat ematea ezinezkoa da, oraingoz. Berria - Kirola

Politena ordea, meza entzuten dutenen eta apaizaren arteko harremana da: apaiza Big-Bang-aren **azalpen zientifikoa** kontatu zion irakaslearen pasadizoa kontatzen hasten denean, kasu. Harkaitz Cano

Edonon arrotz, eta beraz guztiei obejktibitate soziologiko hotz berbera aplikatzeko gai, horra bere nagusitasun intelektualaren **azalpen zientifikoa** . Berria - Kultura

6 *kanpo-azalpen*

Erlijioaren **kanpo-azalpenak** (hizkuntza, erritoak...) ikusiko ditu lehendabizi, gero irizpide orokorretatik aztertzeko. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aski azalpen (3)

azalpen argi (3); **azalpen aske** (3); **azalpen asko eman** (4); **azalpen bakarra** (8); **azalpen bat behar** (3); **azalpen bat eman** (5); **azalpen bat ematen** (4); **azalpen bat ematera** (3); **azalpen bat ere** (3); **azalpen bat merezi** (3); **azalpen bat zor** (3); **azalpen baten** (9); **azalpen batzuk eman** (4); **azalpen beharrik** (3); **azalpen bila** (3); **azalpen edo** (3); **azalpen egokia** (5); **azalpen egokirik** (3); **azalpen eman** (3); **azalpen emateko** (4); **azalpen erraza** (4); **azalpen eske** (13); **azalpen gehiago eman** (7); **azalpen gehiagorik** (5); **azalpen gehiegi eman** (3); **azalpen gisa** (6); **azalpen gutxi eman** (4); **azalpen haiek** (7); **azalpen handirik eman** (5); **azalpen hau ematen** (3); **azalpen hauek** (6); **azalpen historiko** (4); **azalpen hoberenaren** (3); **azalpen honek** (3); **azalpen honen** (4); **azalpen hori eman** (3); **azalpen horiek** (8); **azalpen horrek** (3); **azalpen horrekin** (3); **azalpen horren** (4); **azalpen horretan** (3); **azalpen hura** (4); **azalpen hutsak** (3); **azalpen labur** (3); **azalpen laburra eman** (4); **azalpen logikoa** (4); **azalpen luze** (7); **azalpen luzeak** (3); **azalpen mota** (4); **azalpen onargarria** (3); **azalpen oso** (5); **azalpen posible** (3); **azalpen sinplea** (3); **azalpen ugari eman** (8); **azalpen xehea** (3); **azalpen zehatzak** (5); **azalpen zientifikoa** (7); **azalpen zientifikoaren** (4)

baina azalpen (8); **batek azalpen** (3); **bere azalpen** (8); **beste azalpen bat** (8); **bi azalpen** (5); **buruzko azalpen** (19); **da azalpen** (6); **dut azalpen** (3); **edo azalpen** (11); **edozein azalpen** (5); **emandako azalpen** (4); **ere azalpen** (3); **ez du azalpen** (3); **ez zuen azalpen** (4); **hainbat azalpen ematen** (3); **honen azalpen** (5); **horien azalpen** (3); **horrek azalpen** (5); **horren azalpen** (5); **inguruko azalpen** (5); **munduaren azalpen** (3); **nire azalpen** (7); **oso azalpen** (3); **zen azalpen** (6); **zer azalpen** (4); **zion azalpen** (3); **zuten azalpen** (3)

azalpena besterik ez (3); **azalpena da** (9); **azalpena egin zuen** (3); **azalpena eman** (14); **azalpena ematen** (7); **azalpena ere** (5); **azalpena erraza** (3); **azalpena ez** (7); **baten azalpena** (6); **bere azalpena** (13); **buruzko azalpena** (3); **da azalpena** (3); **edo azalpena** (3); **eman zion azalpena** (3); **ematen duen azalpena** (3); **gure azalpena** (4); **haien azalpena** (3); **haren azalpena** (4); **hemen horren azalpena** (3); **honen azalpena** (7); **lanaren azalpena** (3); **nire azalpena** (6); **ren azalpena** (3); **zuen azalpena** (4)

atzo azalpenak (5); **aurrean azalpenak** (6); **azalpenak aditu** (3); **azalpenak amaitu** (4); **azalpenak baino** (4); **azalpenak beste** (3); **azalpenak bi** (3); **azalpenak dira** (4); **azalpenak eman ahal** (4); **azalpenak eman behar** (17); **azalpenak eman beharko** (15); **azalpenak eman ditu** (4); **azalpenak eman ditzan** (7); **azalpenak eman nahi** (4); **azalpenak eman zituen** (24); **azalpenak eman zituzten** (5); **azalpenak eman zitzan** (3); **azalpenak eman zizkion** (7); **azalpenak emanez** (4); **azalpenak emango ditu** (9); **azalpenak ematea** (17); **azalpenak emateko ere** (3); **azalpenak emateko eskatu** (8); **azalpenak ematen aritu** (3); **azalpenak ematen ditu** (3); **azalpenak ematen hasi** (13); **azalpenak ematen hastea** (3); **azalpenak ematen jarraitu** (3); **azalpenak ematen zituen** (4); **azalpenak ematera** (17); **azalpenak entzun nahi** (4); **azalpenak entzun ondoren** (7); **azalpenak entzuteko** (3); **azalpenak entzuten** (9); **azalpenak ere** (7); **azalpenak eskatu ditu** (5); **azalpenak eskatu dituzte** (4); **azalpenak eskatu dizkio** (9); **azalpenak eskatu dizkiote** (4); **azalpenak eskatu zizkion** (14); **azalpenak eskatu zizkioten** (3); **azalpenak eskatuko** (12); **azalpenak eskatzea** (3); **azalpenak eskatzen** (5); **azalpenak euskaraz** (4); **azalpenak ez** (5); **azalpenak nahi** (3); **baten azalpenak** (3); **bere azalpenak eman** (3); **buruz azalpenak eman** (3); **buruz azalpenak emateko** (3); **buruzko azalpenak eman** (18); **buruzko azalpenak emango** (3); **buruzko azalpenak emateko** (7); **buruzko azalpenak ematen** (5); **buruzko azalpenak eskatu** (3); **curriculumaren inguruko azalpenak** (3); **da azalpenak ematen** (3); **ditu azalpenak** (3); **dituzte azalpenak** (4); **dituzten azalpenak** (3); **dizkio azalpenak** (3); **edo azalpenak** (3); **eman zituen azalpenak** (4); **eman zituzten azalpenak** (4); **emandako azalpenak** (14); **euren azalpenak** (3); **gabeko azalpenak** (3); **gaiari buruzko azalpenak** (3); **gaineko azalpenak** (11); **haren azalpenak** (5); **horren inguruko azalpenak** (9); **horri buruzko azalpenak** (3); **inguruan azalpenak emateko** (7); **inguruko azalpenak eman** (12); **inguruko azalpenak emateko** (7); **inguruko azalpenak eskatu** (6); **kongresuan azalpenak emateko** (3); **lanari buruzko azalpenak** (3); **langileei azalpenak** (3); **nire azalpenak** (4); **presidenteari azalpenak** (3); **zen azalpenak** (6); **ziren azalpenak ematen** (3); **zure azalpenak** (3)

azalpenaren arabera (3); **azalpenaren zain** (4)

bere azalpenean (4); **gure azalpenean** (3)

azalpenek ez (3); **emandako azalpenek** (5)

emandako azalpenekin (4)

azalpenen bat eman (4); **azalpenen beharrik** (3); **azalpenen harira** (4); **azalpenen zain** (4); **emandako azalpenen arabera** (11); **zituen azalpenen** (3)

azalpenetan luzatu (3); **bere azalpenetan** (4); **buruzko azalpenetan** (4)

azalpenik aurkitzen (6); **azalpenik behar** (7); **azalpenik eman behar** (3); **azalpenik eman ez** (4); **azalpenik eman gabe** (25); **azalpenik eman nahi** (6); **azalpenik emango** (4); **azalpenik emateko** (3); **azalpenik ematen** (7); **azalpenik eskatu** (11); **azalpenik ez du** (4); **azalpenik gabeko** (4); **azalpenik hoberena** (3); **beste azalpenik eman** (4); **beste azalpenik ez** (3); **beste azalpenik gabe** (3); **bestelako azalpenik** (4); **buruzko azalpenik** (3); **du azalpenik eman** (6); **ere azalpenik gabe** (3); **ez dago azalpenik** (3); **ez du azalpenik** (12); **ez dut azalpenik** (3); **ez zuen azalpenik** (4); **inguruko azalpenik** (3); **inolako azalpenik eman** (14); **inolako azalpenik ez** (4); **inori azalpenik eman** (4); **zuen azalpenik eman** (4)

---

azalpetik *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)* *adlag* azalaren azpitik.

Migelek ezagutzen zuen pittin bat, eta bazekien aurki irten beharko zuela **azalpetik** arnasa hartzera. ETC-literatura, saiakera

Poza **azalpetik** irten nahian. ETC-literatura, saiakera

Hitz bakoitza zehaztasunez ahoskatzen zuen, batzuetan nahiko korrika zerbait irrikaz lortzeko bezala, eta begiratu, berriz, larru **azalpetik**, dena induskatu nahian. ETC-literatura, saiakera

Zuhaitz-azalaren peko harrarentzat, okilaren organismoaren egokitasun bikainak, bera **azalpetik** ateratzeko egokitua hain zuzen, deabruzko plangilea suposatuko luke, dudarik gabe. ETC-literatura, saiakera

Zer da immunoterapia? Gaixo bati alergeno baten aterakina **azalpetik** edo mihipetik ematea, alergeno erantzule horrek aurretik eragindako sintomei aurre egiteko. ETC-prentsa

Erreakzio larrietan, anafilaxia kasuetan alegia, paziente horiek entrenatuak egon behar dute berehala adrenalina **azalpetik** injektatzeko, adrenalina delako anafilaxiaren sintomak atzera itzultzeko gai den botika bakarra. ETC-prentsa

Greenwich Community Collegeko Martin Heathek ozeanoetako arroek gau aurpegiko izotz **azalpetik** jario librea ahalbidetzeko adineko sakontasuna izango balute itsasoetako ura ere izoztu gabe zirkulatu litzatekeela frogatu du. ETC-entziklopedia

---

azalprintz *iz* larruazala. ik **azalmintz**.

Gainerakoari dagokionez, ederra zen eta gorputzez luzea, eta oso **azalprintz** desiragarrikoa. Juan Garzia

---

azaltzaile *iz* azalpenak ematen dituena.

Bat egite hau bi eratara lortzen da: darabiltzan osagai **azaltzaileen** bidez, eta irakurlearekiko bere erlazioen erritmoaren bidez. Xabier Amuriza

Dena dela, migrazio **azaltzaile** horrek ez du zalantzan jartzen zientziaren ohiko irudi tradizionala. Askoren artean

Syntactic Structuresen, apurka-apurka, orokortze deskribatzaileak egiten dira, eredu sintaktiko **azaltzaile** baten zerbitzuan. Itziar Laka

---

azaltze *iz azaldu* aditzari dagokion ekintza. ik **azalpen**.

Itxuraz ereduz kanpokoak ziren kasuen bilbatze eta **azaltze** intuitiboek, nire ustez, hemen jarraitu dugun bidearen zuzentasunaren aldeko froga garrantzitsuak eskaintzen dituzte. Itziar Laka

Nolanahi dela ere, Europako kultura zaharrean sinbologia sakona zuen landare parasitoa dugu mihura, eta hegaztia mihurari horren atxekirik **azaltze** horrek, badirudi, mihuraren berezko misterioari jainkozko hegalak ere ipini dizkiola. Patziku Perurena

Bat-batekotasunak sortzen duen urduritasunarekin, plazan jendearen aurrean **azaltze** hori oso gogorra izaten da. Berria - Kultura

---

azaluskeria *iz* zurikeria, itxurazalekeria.

Damu dut esatea, baina **azaluskeriaren** garaian bizi gara. Antton Olano

Ez dut zuritu nahi hemen kontua, gertatu dena gertatu baita eta ez baita fitsik zuritzeko edo **azaluskerietan** ibiltzeko. Pello Salaburu

Baina harrigarria da gizabanakoa: biziki mintzen da berak errespetatzen ez dituenek begitan hartzen dutelako, haien **azaluskeria** eta jantziak direla-eta inongo gupidarik gabe eta oso hitz gordinez maiseatu dituenek gorroto diotelako. Jose Morales

azaluts *izond* itxurazalea, hipokrita.

Hitz zuria eta **azalutsa** da txoritegi hitza. Jon Muñoz

"Fidel izan beharraz" honetan, haren beste antzerki-lan batzuetan bezala, Wildek, bere umore finena erabiliz, gizarte **azaluts** horren erretratu bat egiten du. Antton Olano

---

azaña 1 *iz (corpusean **azaina** soilik)* balentria.

Ulertzeko da, bere bizitza eredutzat daukan jendea izatea oraindik, eta bere **azainak** kontatzeko kemen puska harroa izatea ere, baina, nik ez dut inorentzat eredugarri den bizitza pedagogikoa egin, ez eta apropos ereduaurka ibili ere. Patziku Perurena

2 *iz* gaiztakeriazko ekintza.

Tesi zuzendari bat, unibertsitateko bi errektore, literatura-irakasle bat, kritikari bat, hiru argitaratzaile eta mandatari bat, bi txofer eta zerbitzari bat garbitzea izan zen bere azken **azaina** odoltsua. Jon Alonso

---

azantz 1 *iz* hotsa.

Azantz ikaragarria deika ari zitzaiola irudikatzen zuen eta bakarretan amets gaiztoetarik itotzear iratzartzen zen. Itxaro Borda

Azantz guti egiten duten erleen pare. Herria

Belarriak zorroztu ditu ibaiaren **azantza** gainetik beste zerbait entzuteko peskizan. Pello Lizarralde

Horrelakorik egin ezean, "Bulgarian odola erruz isuriko" eta Polonian "leherketen **azantza** adituko" dela agindu du talde honek. Berria - Mundua

Haren ulua nekez azpiratzen ahal du kamioien **azantzak**. Xabier Montoia

2 ***azantz egile***

Geroztik, ostatura bertze hiru lagun sartu dira, xutik daude eta nahiko **azantz egile** handiak dira, irri zafla ozenak botatzen dituzte noiz nahi. Eneko Bidegain

---

azao 1 *iz* ebakitako gariaz edo kideko landareez egiten den sorta. ik **bala**[2]; **espal**.

Azaoen ondoan poliki paratuak zeuden arno zahagiren bat edo beste eta mandoen arreoak. Koldo Izagirre

Izan ere, Pazkoan **azao** edo gari-xorta bat zeramaten, artean apenas galburuak heltzen eta makurtzen hasiak izaten zirenekoa. Pello Zabala

Gari **azaoek** ez dute ezertarako balio izan. Josu Zabaleta

Oso urrutitik, kale eta hormetan zehar, bapore baten adarrari zerion auhen luzea Ellenen baitan barneratu zen, legarrean zehar aurrera zegien belar **azaoaren** antzera. Lopez de Arana

Azao sutuek itzal bizi bihurtzen dituzte inguruak, susmo beltz haitzak eta pago gerriak, eta zidorrean gora, ozta ikusten dira zapatak lurrari kentzen, beste oinetako zarpailago batzuk dituztela aurretik, bide erakusle. Iñigo Aranbarri

2 irud/hed

Argi-**azaoaren** indarra gutxitzen hasi zen. Jon Muñoz

Sumendiaren kraterrak sugar **azao** bat iraizten zuen goitika. Juan Garzia

Gero, ilargiaren argi urdin eta hausterrezko **azao** neurrigabearen pean. Josu Zabaleta

---

azaoka *adlag* azaoak eginez.

Eta, azkenik, **azaoka** bilduriko usain-belarrak eta krabelinak ikonoen alboan, hain zimelduak, non usaintzeko asmoz hurbiltzen zaienak usin besterik ez baitu egiten. Jose Morales

---

azare *iz* zoria, patua.

Azare hutsa izan zela, ala ezinbestekoa? Xabier Mendiguren Elizegi

Dudazkoa da geroak nolako zoria ekarriko digun, **azareak** zer emango digun eta nolako azkena zain daukagun. Xabier Amuriza

---

azarkatu, azarka, azarkatzen *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* du *ad* asmatu.

Dedek gidatzen zuen kamioi burrunbaria gelditu eta gabeziaren ilunabarretik jazarri bi siluetekin solastatzeko astia **azarkatu** genuen. ETC-literatura, saiakera

Egia dela nire lanarentzat topaketa iragankor batzuk ukan ditudala emakumeekin, bezero batzuekin eta gau batez nire emazteak **azarkatu** ninduen. ETC-literatura, saiakera

---

azarkeria *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* azartasun gaitzesgarria. ik **ausarkeria**.

Jasan, eraman, bildur ta kokiltasuna azpiratzen dituanez, sendotasunari dagozkion egizkizunak dira; eraso, ekin berriz, **azarkeria** neurritzen duanez dagozkionak. ETC-literatura, saiakera

---

azaro 1 *iz* urtearen hamaikagarren hila, hogeita hamar egun dituena.

Soneto sinbolista bat, La Conque aldizkarian (aldaera batzuekin) birritan agertu zena (1899ko martxo eta **azaroko** zenbakiak). Juan Garzia

Azaroan Konstituzioari zin egitea manatu die. Xipri Arbelbide

Eta **azaroan** sartu ginen eta **azaroko** egun batean eztulka larrian hasi zen, eta, ohiko karkaisekin batean, odola eta odolbilduak ere espektoratu zituen. Joan Mari Irigoien

Ivan iazko **azaroan** etorri zen. Eskarne Mujika

Eta Angel Murok "El Practicón" ezagunean esaten du, beleak **azaroan** eta abenduan direla goxoenak: Patziku Perurena

Azaroan, hiru bat mila armagizon gehiago etorri ziren, Albreteko etxearen menpeko bertze herrietatik: Biarno, Foix, Armagnac, Bigorra... Frantziako erregeren soldaduak baizik ez ziren falta. Aingeru Epaltza

Nehor bizi ote da hemen **azarotik** martxora? Piarres Aintziart

Hura, egun osoan barnean egona zen, bere makina elektronikoen aitzinean, gogoa sutan, eta ez du batere kasu eman, **azaroko** egunik txarrenetan txarrena zela. Daniel Landart

1944ko **azaroan** naziak maldan behera zihoazen, baina inor ez zen fidatzen. Fernando Morillo

Berrogei mila libera eman dizkiot bankuan sartzeko, eta **azaroan** esposatzeko proposatu diot. Javi Cillero

Hogeita hamaika urte beteko zituen **azaroan**. Irene Aldasoro

Azaroa, edo landare haziak ereiteko hilabetea, hazila ere deitua dena zenbait tokitan, beti ere haziarekin lotua. Pello Salaburu

44ko **azaroan** tirokatuko zuten apez bat abreki gaizkitua izan zen, lagun zenbaitekin block-eko zoko batean otoitzean ari harrapatu zutelakotz. Marzel Etxehandi

Azaroaren hasieran hil zen minbiziz. Xabier Montoia

Horrela, 13koak 12arena osatuko luke, 14koak 11ko **azaroarena**, 15ean egindako eguraldiak 10eko urriarena, eta horrela eskaileran behera, aurrekoak osatuz. Pello Zabala

Sasoin hezea ekainetik **azaro** arte. Ramuntxo Etxeberri

Azaroan Herriko Defentsa Batzordea osatu zen, eta berari zegokion haren buru izatea. Edorta Jimenez

Dena ondo badoa, **azaroaren** bigarren hamabostaldian sartuko naiz Iranen, hain zuzen Ramadan hilabetea hasten denean. Jon Arretxe

Badaramatzazue hiru hilabete hemen, badira hiru hilabete etorri zinetela, ia zehatz hiru hilabete orain, **azaroaren** azkenean, eta ez duzu konpresarik erosi behar izan. Lourdes Oñederra

Kazetariak gudalekura behingoan joan nahi izango lukeen arren, itxuraz behintzat, **azarora** arte itxaron beharko du, orduan NANA agentziaren gonbita hartu, horri baiezkoa eman eta hurrengo urtean Espainiara joango dela ziur izateko. Edorta Jimenez

Ogi prefabrikatu usaina izerdiarekin nahasturik, goralarria sortzen du metro barruan egiten duen beroak, nahiz eta **azaroa** izan. Eider Rodriguez

A-27ko kolpea: 1992ko **azaroaren** egun horretan beste kolpe bat izan zen, baina garrantzi txikiagoa izan zuen. Pako Aristi

Azaroan sartu zirenean, eguraldia ikaragarri hoztu zen. Iñaki Mendiguren

2 (-en atzizkiarekin, datetan)

Azaroaren 3an bi ezkontza ukan ditugu. Herria

Azaroaren hiruan feria handi bat izan zen Morat-en, suitzarrentzat ohitura zena. Josu Zabaleta

Kontuak kontu, Ituna 1993ko **azaroaren** 1ean sartu zen indarrean. Iñaki Heras

Eguna 1981 eko **azaroaren** 6a izan zen: hamasei urte nituen. Iban Zaldua

Europa zaharrean, bitartean, "Kristal hautsien gaua", horrela deitu baitzioten **azaroaren** 9an naziek egin sarraskiari juduen sinagoga eta negozioekin. Pello Salaburu

Haizea moteldu egin zen arren, zeruak gris zirauen eta Eskualdeak itxura triste eta samina zuen, izan ere, **azaroaren** lehena baitzen, udazkenaren amaieran. Agustin Otsoa

1905eko **azaroaren** 6ko ale osoa Blévigneri buruzkoa zen. Monika Etxebarria

Astronomoek diotenez, Talesek egin beharko zuen neurketa... (Blok bat atera zuen sakelatik, eta gainetik irakurri)... **azaroaren** 21ean edo urtarrilaren 20an, horra. Jon Muñoz

1930eko **azaroaren** 22an Ku Klux Klanek agertze bat egin zuen Whistle Stopeko kafean. Pablo Sastre

Biharamunean astelehena zen, 2002ko **azaroaren** 18a. Iñaki Zabaleta

-Azaroaren 24an izenpetua izana da eta urtarril hondarra da. Elena Touyarou

Mezua ixtean ohartu nintzen: ez zuen aurreko eguneko data, **azaroaren** 3koa baizik. Iban Zaldua

Eguna ere, ezin esan alabeharrez ala halabeharrez aukeratu zuten: **azaroaren** 20a, Franco hil zen egun bera. Joxerra Garzia

3 (-k atzizkiarekin, datetan, aposizioan)

Azaroak 2: Segik abiatutako intsumisio kanpaina zabaltzeko kartelak jarri eta eskuorriak banatuko dituzte. Berria - Euskal Herria

Arbelean, eskuineko ertzean, klarionaz idatzita, data bat dago: **"azaroak** 4, asteazkenea". Iban Zaldua

Xede hortarat bilkura bat eginen dute ortzegun huntan, **azaroak** 8, aratsaldeko 6-etan, Denak-Batean etxean, eta gisa bereko bilkurak eginen dira hilabete guziz, hilabeteko lehen ortzegunetan, azarokoa bigarrenean egiten bada ere Omiasainduren gatik.... Herria

4 (-k atzizkiarekin, datetan)

Urriak 21ekoa: Ihintza; eta **Azaroak** 20koa: Izotza). Pello Zabala

Azaroak bederatziko gertakizun hura gogoan zuen oraindik Martak. Harkaitz Cano

Biharamun goizean **Azaroak** 17.a. Herria

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azaro bukaera zen. Jon Muñoz

Azaro bukaeratik bertatik hasi zuen elurra, astebetez izotza izan ondoren. Josu Zabaleta

Azaro bukaeran etorri zen umea, ur hegaztien sasoi betean gertatu zen tarte hotz batean. Koro Navarro

Udaberri txiki: **Azaro** hasierako egun eguzkitsuak, San Martin udara. Ibon Uribarri

Azaro amaierako Kongresuaren atarian, Kontseilu Nagusia bildu zuen atzo ELAk Donostian . Berria - Ekonomia

Azaro hasieran izan zuen lesiotik sendatu ondoren, Bartzelonaren kontra eskuin hankako kuadrizepsean mikro-haustura bat egin baitzuen. Berria - Kirola

Gazte kontseiluaren estreina bilkura **azaro** hastapenean iraganen da. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azaro arte (3); **azaro bukaeran** (4); **azaro erditsutan** (3); **azaro hasieran** (3); **azaro honetan** (3); **azaro hortan** (3); **azaro hunen** (10); **azaro huntan** (4); **helduden azaro** (4)

azaroa arte (13); **azaroa baino lehen** (3); **azaroa bitarte** (5); **azaroa eta abendua** (5); **azaroa zen** (3); **den azaroa** (3); **iragan azaroa** (3); **urria eta azaroa** (5)

autonomikoa azaroak (3); **jardunaldia azaroak** (4); **minutuan iazko azaroak** (3)

aurtengo azaroan (3); **azaroan aebetako** (6); **azaroan ameriketako estatu** (3); **azaroan anoetako** (3); **azaroan anoetan** (4); **azaroan atxilotu** (3); **azaroan aurkeztu zuen** (4); **azaroan aurkeztuko** (3); **azaroan baino** (6); **azaroan batasunak** (5); **azaroan bertan** (3); **azaroan bi** (3); **azaroan bukatuko** (3); **azaroan egin zuen** (3); **azaroan egindako** (3); **azaroan egingo den** (3); **azaroan egingo diren** (5); **azaroan ere** (4); **azaroan eta abenduan** (14); **azaroan gertatu** (4); **azaroan hasi zen** (4); **azaroan hasi ziren** (4); **azaroan izango diren** (4); **azaroan jarri** (5); **azaroan jaso** (3); **azaroan new yorkeko** (3); **azaroan sartu** (3); **azaroan sortu zuen** (5); **azaroan sortuko** (3); **baina azaroan** (3); **da azaroan** (8); **datorren azaroan** (9); **den urteko azaroan** (6); **dira azaroan** (6); **ditu azaroan** (5); **du azaroan** (4); **eko azaroan** (3); **heldu den azaroan** (7); **helduden azaroan** (8); **iazko azaroan hartu** (3); **iragan azaroan sortu** (4); **joan den azaroan** (37); **joan zen azaroan** (7); **joanden azaroan** (9); **ko azaroan** (6); **sharonek iragan azaroan** (3); **urrian eta azaroan** (11); **ziren azaroan** (4); **zituen azaroan** (6); **zuen azaroan** (5); **zuen iazko azaroan** (6)

antolatzen du azaroaren (5); **ariko dira azaroaren** (3); **aurtengo azaroaren** (3); **azaroaren amaieran** (10); **azaroaren azken** (3); **azaroaren bigarren hamabostaldian** (3); **azaroaren bukaeran** (8); **azaroaren erdialdean** (3); **azaroaren hamabostean** (3); **azaroaren lehenean** (4); **baina azaroaren** (4); **baionan azaroaren** (4); **batasunak azaroaren** (9); **beraz azaroaren** (3); **bigarrena azaroaren** (3); **datorren azaroaren** (14); **deitu du azaroaren** (4); **den urteko azaroaren** (5); **dira eman azaroaren** (3); **ditu azaroaren** (9); **dituzte azaroaren** (10); **donostia azaroaren** (4); **dugu azaroaren** (4); **dute azaroaren** (18); **dutela azaroaren** (3); **edo azaroaren hasieran** (4); **eginen da azaroaren** (4); **eginen du azaroaren** (3); **egingo du azaroaren** (4); **eguna azaroaren** (4); **ekitaldia azaroaren** (3); **eko azaroaren** (3); **ezkontza azaroaren** (4); **hartako azaroaren** (3); **hasi eta azaroaren** (4); **heldu den azaroaren** (17); **helduden azaroaren** (15); **heriotze azaroaren** (4); **hitzordua azaroaren** (4); **huntan azaroaren** (3); **iazko azaroaren** (51); **iragan azaroaren** (32); **iraganen da azaroaren** (9); **irristatze federazioak azaroaren** (3); **izanen da azaroaren** (8); **izango da azaroaren** (4); **joan den azaroaren** (38); **joan zen azaroaren** (8); **joanden azaroaren** (4); **ko azaroaren** (30); **kontzertua azaroaren** (3); **larunbatean azaroaren** (3); **partida azaroaren** (4); **pasa den azaroaren** (3); **urte guziz azaroaren** (3); **zen urteko azaroaren** (3); **zinema azaroaren** (12); **zuen azaroaren** (6)

azaroaz geroztik ez (3)

azaroko azken (5); **azaroko biltzar** (3); **azaroko egun** (5); **azaroko hauteskundeetan** (10); **azaroko jokalari onena** (3); **azaroko lehen** (5); **azaroko presidentetzarako** (5); **da azaroko** (3); **du azaroko** (4); **heldu den azaroko** (4); **iazko azaroko** (5); **joan den azaroko** (5); **zen azaroko** (3)

azarora arte (13); **urritik azarora** (3); **urtarriletik azarora bitartean** (3)

azarotik abendura (3); **azarotik ari** (3); **azarotik aurrera** (4); **azarotik goiti** (4); **den urteko azarotik** (3); **iazko azarotik** (4)

---

azarri *izond* ausarta.

-Edozein da **azarri**, baina gudura doa gutxi! Edorta Jimenez

Seinale honetara, gerlariak nagiak ateratzen hasi ziren eta **azarri** jartzen. Joanes Urkixo

---

azarta *iz* zortea, xantza.

Hor ez du Baigorrin zuen **azarta** haundi hura erakutsi ahal ukan Muscarditzek, ez botean (bat bakarrik sartu du) ez-eta jokoan ere. Herria

---

azartasun *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* arriskuen aurrean atzera egiten ez duenaren jokaera; azarri denaren nolakotasuna. ik **ausartasun**, **ausardia**.

Behorrek bidea leunki aukeratzen zuten ibilaldi ohiz kanpoko hartan; pottokoak, lehen baino tarte handiagoa utzita, aurretik zihoazen, lantzean behin begiratu egiten zutelarik haien **azartasunerako** onarpen eske. ETC-literatura, saiakera

Eguzkiak iru bidar zirargiz edertu ebazan zeru zabaletatik itxas-ur urdiñak, eta iru bidar arrituta geratu zan Matxiñen **azartasunari** begira-begira, eta Turkoen lotsaria ez ikustearren gero arpegia ostendu euan. ETC-prentsa

---

azartu ik **azertatu**.

---

azau ik **azao**.

---

azazkal *(ETCn **1.744** agerraldi; orobat **azkazal** ETCn **794** agerraldi eta **atzazkal** ETCn **13** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **azazkal** eta **azkazal** ageri dira)* **1** *iz* gizakiak eta zenbait animaliak hatz muturren gaineko aldean duten adarkizko xafla. ik **azkazal**; **atzoskol**.

Susmoa diat **azazkal** honetan ezkutaturik zegoen zerbait manifestatzen hasi dela... Iñaki Iñurrieta

Kontuz eta kuidadoz moztu **azazkalak**. Pello Zabala

Ahotik puska bat atera, eta **azazkal** bat zela egiaztatu ahal izan nuen. Karlos Linazasoro

Patrikarik balu, ez lituzke **azazkalik** gabeko eskuak haietatik aterako. Harkaitz Cano

Azazkal bat baino txikiagoa da, zazpi gramo pisatzen du eta argindarra kontsumitzen du. Berria - Ekonomia

Eta hantxe bertan, atzaparrekin lurra zulatzeari ekin omen zion, **azazkalak** odoldu zituen arte. Ramon Saizarbitoria

Erdi itoan nengoen, hotzak gogorturik, **azazkalak** odoletan. Aingeru Epaltza

Isildu egin zen eta arrosaz pintatutako **azazkalei** begiratu zien. Ander Irizar

2 ***azazkal-berniz*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Joanna odol-kolore iluneko bere azazkalei distira ematen ari zitzaien, bere lagunaren **azazkal-berniza** erabiliz. ETC-literatura, saiakera

Kendall-ek bere familiarekin bi **azazkal-berniz** ditu. ETC-entziklopedia

3 ***azazkal esmalte*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Esmalte-kentzekoa **azazkal-esmaltea** ezabatzen duen disolbatzaile organikoa da. Azazkalak garbi uzteko erabiltzeaz gain, **azazkal-esmaltea** eduki ondorengo denboraldian azazkalak hidratatzeko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

Agur esatean, **azazkal-esmaltea** erakutsi, eta esan dio oraindik ez dela libre, garai hobeagoetarako gordeko duela. ETC-literatura, saiakera

Errata izan liteke edo ez, "inoiz ez du makillajea eta **azazkal-esmaltea** ahanzten" esaldia bitan ageri da. ETC-literatura, saiakera

4 ***azazkal inkarnatu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Azazkal inkarnatuak. ETC-prentsa

5 ***azazkal-laka***

Bizarrik egin gabe desgogara sentitzen nintzen eta bainu-gela osoa arakatu nuen goitik behera bizar-xafla baten bila; flaskotxoak, hauts-ontzitxoak, ezpain-lapitzak, tuboak, **azazkal-laka**, ile-gakoak, besterik ez... ispiluan neure alkandora ikusi nuen: bezperan baino askoz ere itxura narratsagoa zeukan, odol-arrastoak zurbilxeago bai, baina hedatuago ere bai. Joxe Austin Arrieta

6 ***azazkal-mozteko***

Hasieran, gehien bat oinarrizko gauzei lotu gintzaizkion (galtzerdiak, barruko arropak, kulero zangodunak, kulero motzak, pijamak, izerditzeko elastiko txanoduna, nylonezko zamarra, **azazkal-moztekoa**, hortz-eskuila, orrazteko eskuila eta abar eta abar). Oskar Arana

7 ***azazkalak jan***

Mireia **azazkalak jaten** hasi zen. Fernando Morillo

Mintza nadin, bada, arrazoibidez: orain arte nitaz kontatu dudan guztiak inor **azazkalak jaten** zein azazkalak zorrozten jarri badu, aitor dut neuk ere inor horren ispilu berean begiratu dudala eta neure egina dudala bere eszeptizismo bikoitz hori. Anjel Lertxundi

8 ***azazkalak jate*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Eskuak ezkutatu egiten nituen, **azazkalak jateagatik** haragi bizitan bainituen hatzak, eta segurtasun falta salatzen zutela iruditzen baitzitzaidan. ETC-literatura, saiakera

Atzamarra sudurzuloan edo belarrian sartzea, puzkerra botatzea, ipurdia ukitzea, zapata kendu eta oin azpian hazka egitea edota **azazkalak jatea** ... ETC-literatura, saiakera

Biharamuneko ekintzaren aurreko bertigoa ere etorri zitzaion bat-batean, ezin zion eutsi **azazkalak jateari**, begiak handitu zitzaizkion eta busti. ETC-literatura, saiakera

Askotan, **azazkalak jatea** erreakzio inkontzientea da, esaterako telebista aurrean. ETC-entziklopedia

Beste batzuen artean, **azazkalak jatea**. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 ***azazkaletako berniz***

Lurrean utziak zituen **azazkaletako berniz** pote bat eta hwat'u jokoaren kutxa. Juan Kruz Igerabide

10 ***azazkaletako esmalte*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Ondoren, zazpi gogoeta eginda, adreilu koloreko **azazkaletako esmalte** potetxo karratu bat aukeratzen du, eta ezpain-margo eskarlata bat. ETC-literatura, saiakera

Auto bat erretzeko, noiztik erabiltzen da **azazkaletako esmaltea** kentzeko azetonan bustitako emakume-galtzerdi bat? ETC-literatura, saiakera

Eta hala egon nintzen ordubetez, nahasirik eta antsiaturik, eta, bitartean, zuek aktoreen argazkiak erakusten zenizkioten elkarri, maiteminduez eta **azazkaletako esmalteaz** eztabaidatzen zenuten. ETC-literatura, saiakera

11 ***azazkaletako laka***

Ada **azazkaletako laka** hezurkolorea kentzen ari zen alkoholetan bustitako goata-puska batez. Anjel Lertxundi

12 ***katu-azazkal*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

"Carpobrotus edulis" edo **katu-azazkala** Aizoaceae familiako landare zukutsua da, jatorriz Hegoafrikakoa eta Euskal Herriko kostan bertakotu dena landare inbaditzaile bihurtuz. ETC-entziklopedia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azazkal bat (3); **azazkal haiek** (3); **azazkal zorrotzak** (3); **bere azazkal** (5)
azazkalak haragian sartu (3); **azazkalak jaten hasi** (3); **azazkalak moztu** (4); **ditu azazkalak** (3); **haren azazkalak** (4)
azazkalaz tapa (3)
ez azazkalik (3)

---

azazkalorde *iz* ordezko azazkala.

Edurtxo Caterpilar **azazkalordeez** hazka eta hazka ari zen harkarte aldean, asperduraren asperduraz. Karlos Linazasoro

---

azefalo *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)* *izond/iz* bururik ez duena.

Alde batera utz dezakegu Weberrek, geroago, pentsalari politiko militantea izanik, bere gustuak zituela, eta bizitzako azken urteetan ideal modura izan zuela bitariko gobernu tankera bat, zilegitasun demokratikoa buruzagi baten presentzia aktiboarekin uztartzen zuena, eta "demokrazia plebiszitario" izenez bataiatu zuena, demokrazia parlamentario "**azefalotik**" bereiztearren. ETC-literatura, saiakera

Pierre d'Aillyren Imago Mundi obrak deskubritu berri den eta guztiz zoriontsua den gizateria bati buruz hitz egiten du, "gens beatissima", pigmeoek, makrobioek eta **azefaloek** osatua. ETC-literatura, saiakera

Antolaketa politiko anarkikoa zela ere esatea badago: sultanarentzat Siba zen noski, beraren agintea ametitzen ez zutelako, eta europarrentzat ere 'desorden' hutsa zen, **azefaloa** zelako. ETC-literatura, saiakera

Oraingo mugimendua **azefaloa** da: ez dago interlokutore bat: kalean dagoen mugimendu bat da, eta horrek oso gutxi kezkatzen ditu gizonak. ETC-prentsa

Hasiera batean, ikergaia Mendebaldearentzat exotikoak ziren lurraldeetako giza komunitateak ziren, estaturik gabeko, primitibo, **azefalo** esan izan zaien horiek. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi urte beranduago, Breuilek beste lau irudi gehiago aurkitu zituen: buruzagirik gabeko hiru bisonte **azefalo**, hartz oso bat, zehaztasun gutxiko bobido bat eta lerro-segida ulertezin bat. ETC-entziklopedia

1986-1991 urteen bitartean "Jendetzak" saila osatu zuen, berrogeita hamar-hirurogei irudi **azefaloz** osatua. ETC-entziklopedia

---

azeifa *iz* Iberiar Penintsulan musulmanek egin ohi zuten kanpaina militarra.

Gaur egungo historiako ikerketen arabera uste da gudaldi hori ez zela izan Frantziako historiak mito fundatzaile gisa magnifikatu duen borrokaldi izugarria; uste da indar neurketa bat izan zela, mugak behartzeko egiten ziren "**azeifa**" haietako bat baino askoz gehiago ez. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

azeituna *(ETCn **103** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **oliba** agertzen da)* *iz* oliba.

Aperitibo gisa **azeituna** beteak atera ditu, eta ardo zuri hotza ari dira edaten kopa luzetan. Joxemari Iturralde

Baina **azeituna** iltzatuta zegoen lurrari, sardearen ziriak sator lurretan ondo sakon. Joxean Sagaztizabal

Susanak burua astindu zuen **azeituna** platertxoa hartuz batera. Bernardo Atxaga

Inor ez ginen harritu, hiru pakete tabako beltz erretzen baitzituen egunean, fariasak aparte, **azeitunak** ere hezur eta guzti irensten zituen eta gitarra beti eskura baitzuen, urdaiazpikoa, alegia. Jon Maia

Zehatz esateko, zotz batean ilkaturiko **azeituna** bat zirudien. Jon Alonso

---

azekia *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)* *iz* batik bat labore sailak ureztatzeko erabiltzen den erretena.

Laborantza era berrietara moldatu da hemen ere -marka propioa aldarrikatzen duen piper sailak eta beste- baina duela mende bateko laborantzaren aztarnak ere ikusiko dituzue: artoa eta babarruna, lur sailen arteko **azekiak**, errotazio sistema... ETC-prentsa

Orozkotik gertu, Gorbeiako parke naturalean eta Itxinako mendigunearen begiradapean, Bizkaiko pagorik handiena topatu daiteke: **Azekietako** pagoa. ETC-prentsa

Mugimendu hauek erreka ugari sortu zituzten eta **azekia** bidez nekazaritzaren garapena etorri zen Kanto eskualde guztian, batez ere arrozarena. ETC-entziklopedia

---

azeleradore ik **azeleragailu**.

---

azeleragailu 1 *iz* ibilgailuetan, motorreko errekin nahasturaren sarrera handituz edo txikituz, lastertasuna kontrolatzen duen gailua.

Ronek hanka **azeleragailuan** jarri eta autoa goratu egin zen berriro, baina berehala hasi zen motorra kexatzen. Iñaki Mendiguren

Duela urte asko Autodromo Nazionale di Monza zirkuitu obalatua zen, une oro **azeleragailua** zapalduta eramateko modukoa. Berria - Kirola

Izu laborri batean, **azeleragailua** sakatu eta Guardia Zibilaren kontrol seinaleen aurka zapatu zuen bere autoa. Harkaitz Cano

Zaflada leun bat eman nion bolanteari, eta **azeleragailua** sakatzen hasi nintzen berriro. Anjel Lertxundi

Nire zango-zola **azeleragailuan** landatu zen. Aingeru Epaltza

Nire indar guztiaz **azeleragailua** zapaldu eta Mercedesak jauzi egin zuen aurrerantz, bere potentzia itzelaren ahal guztiaz bultzaturik. Alberto Ladron Arana

Gidariak **azeleragailua** zapaldu, eta berehala, betiko joana zela zekien arren, ziurtasun batek kordokatu zuen Lucas: aurrean baleuka, jo eta bertan hiltzeko gauza litzateke bigarren txartelaren jabea. Aritz Gorrotxategi

2 *iz* fisikan, partikula kargadunen energia zinetikoa handitzeko tresna.

Egun, Interneterako super sare bat lantzen ari dira, LCH **azeleragailuaren** saioek emango duten datu kopuru erraldoia kudeatzeko. Berria - Gaiak

Bai, badira, eta quark-ak dira, quark-en izenak dira (unibertsoaren hastapeneko beroaldian jaio eta berehalaxe itzaliak, eta gure denbora dohatsu honetan, partikulen **azeleragailuetan**, berriro munduratu dituztenak; ipuin harrigarria baita, eguzkiaren azpian egundo kontatu den harrigarrienetakoa, eta munduko txakur guztien buztanak tentetzeko modukoa). Iñaki Segurola

Tresna erraldoiak, eskuraezinak behar ziren edozer aztertzeko: **azeleragailuak**, sateliteak, laborategi eskergak... Fernando Morillo

3 irud/hed

"Aurten ere gogor eragingo diogu **azeleragailuari**, inoizko mozkinik handienak lortzeko", azaldu zien bankuko akziodunei. Berria - Ekonomia

4 ***partikula azeleragailu*** *(corpusean ez dago; ETCn **137** agerraldi)*

Partikula-azeleragailua kargadun partikulak abiadura handietara azeleratzeko eremu magnetikoak erabiltzen dituen gailu bat da. ETC-entziklopedia

Alde batetik, AEBek **partikula azeleragailu** handia eraikitzeko planak bertan behera utzi dituztelako gertatu da hori. ETC-prentsa

CERN Europako Fisika Partikulen Laborategiko LHC **partikula azeleragailuan** oker zer dagoen aztertzen ari dira ikertzaileak. ETC-prentsa

Azaroan behar zuen martxan, baina, dena ondo badoa, heldu den urteko maiatzean hasiko da lanean inoizko **partikula-azeleragailurik** ahaltsuena. ETC-prentsa

1930eko urteetan Ernest Lawrencek asmatutako lehen **partikula azeleragailu** zirkularra, ziklotroia, ez zen bere eskua baino handiagoa. ETC-prentsa

Urrian abiatu zuten lehen **partikula azeleragailua**, eta, urtarrilaren 7an, bigarrena. ETC-prentsa

Ezin zehaztu, kasik, aurkitu edo sortu egiten dituzten, laborategietan agertzen baitira soilik, erreaktore nuklearretan edo **partikula azeleragailuetan**. ETC-prentsa

Ez da ahaztu behar horixe dela, hain justu, 1.800 milioi euro kostatu den LHC **partikula-azeleragailuaren** helburu nagusietakoa. ETC-prentsa

Partikula azeleragailuaren afera zertan den ere ez dakigu. ETC-prentsa

Hantxe dago **partikula-azeleragailu** famatua eta, besteak beste, hantxe sortu zuten Internet. ETC-literatura, saiakera

Kalkulu matematiko asko egin ondoren, eta **partikula-azeleragailuetan** gertatzen denari arretaz behatu ondoren, zientzialariek uste dute sorreraren ondoko 10-43. segundoraino egin dezaketela atzera, eta une horretan unibertsoa oso txikia zela artean ETC-literatura, saiakera

Partikula azeleragailuak gaur egungo zientzia ulertzeko eta asmo handieneko esperimentu sikoak burutzeko ezinbesteko tresnak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, partikula-fisikariek han jarraitu zuten atomoak eta gero partikulak azeleratzen gero eta **partikula-azeleragailu** indartsuagotan. ETC-zientzia, zuzenbidea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azeleragailua zapaldu** (5); **zapaldu zuen azeleragailua** (3)
> **azeleragailuari eman** (3); **azeleragailuari sakatu** (3)

---

azeleratu, azelera, azeleratzen

1 da/du *ad* ibilgailuez edo motorrez mintzatuz, abiadura handitu.

Ravenclaweko zutoinak inguratu zituenean **azeleratu** zuen Harryk bere erratza, atzetik Cho zuela. Iñaki Mendiguren

Baina argibiderik eman gabe, autoa **azeleratu** eta alde egin zuten.Erantzuna gustatu ez bazaik..., ez ezak galdetu! -eta barrezka, motorra **azeleratu**, eskuaz agur egin eta handik joaten da. Berria - Euskal Herria

Motoreak **azeleratu** egin ziren, palankek kirrinka egin zuten lehenengo martxa sartzean. Lopez de Arana

Azeleratu gabe atera da, motorra oinekin bulkatuz. Pello Lizarralde

2 da/du *ad* fisikan, partikula kargadunez mintzatuz, energia zinetikoa handitu.

Bi protoi izpi jaurtiko dituzte kontrako norabideetan eta LCHk **azeleratuko** ditu abiada handian, segundoko 40 milioi aldiz gurutza daitezen. Berria - Gaiak

EBTk ez zuen **azeleratzen** ari ziren behatzaileentzat balio, eta ez zen grabitazioa azaltzeko gauza. Berria - Gaiak

3 (era burutua izenondo gisa)

Mugimendu **azeleratuaren** formula sinpleak erabili zituzten ingeniariek aurreratzeko maniobrak zenbat irauten duen kalkulatzeko. Berria - Gaiak

Lehena, Mendebaldeko gizakiak gizatiarra ez den naturaren gain lorturiko nagusitasuna hedatzea; bigarrena, nagusitasun horrek zekarren gizarte-aldaketaren lastertasun **azeleratua**. Iñaki Mendiguren

4 irud/hed

Patxiren arnasa gehiago **azeleratu** zen, baina ez zuen ahoa zabaldu: indarren banaketa berria ulertzen hasia zen; eta bera zela xakean zegoena. Fernando Morillo

Bigarren taldeak arrapaladan ekin dio jotzeari, erritmoa **azeleratuta**, gitarrak sutan. Patxi Iturritegi

Kafeak eta kopak direnean lasaiago ibiltzen da Asun, ez horren **azeleratua**. Paddy Rekalde

5 ***higidura azeleratu*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Bagoiaren **higidura azeleratua** gorputzek berarekiko duten portaera mekanikoan agertzen da. ETC-literatura, saiakera

Hasiera batean sasiazelerazioaren eta **higidura azeleratu** erlatibistaren arteko erlazioa erabilita kalkula dezakegu Lurrean dagoen bikiak estimatuko duen denbora. ETC-entziklopedia

Plano haietan behera errodatuz jaisten ziren bolen higiduraren behaketan oinarriturik, **higidura azeleratuaren** teoria proposatu zuen, handik gutxira Newton-ekin (1642-1726) biribilduko zen mekanika klasikoaren giltzarria izango zena. ETC-entziklopedia

6 ***higidura uniformeki azeleratu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Bertan, abiapuntu modura hartu zuen Galileo-ren garaitik ezaguna zen ideia bat, zeinaren arabera erorketa librean jausten ziren gorputzek **higidura uniformeki azeleratua** zuten. ETC-entziklopedia

7 ***higidura zuzen eta uniformeki azeleratu*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Zinematikan, **higidura zuzen eta uniformeki azeleratua**, HZUA laburtzapenez ere ezaguna, ibilde zuzena eta azelerazio konstantea duen higidura mugimendua da. ETC-entziklopedia

8 ***higidura zuzen uniformeki azeleratu*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Azelerazioa konstantea den kasuan, a=--kte, **higidura zuzen uniformeki azeleratua** dugula esango dugu. ETC-entziklopedia

Azelerazioa nulua ez denean, higidura ez da uniformea, "higidura zuzen azeleratua" baizik; eta azelerazioa konstantea denean, "**higidura zuzen uniformeki azeleratua**". ETC-entziklopedia

---

azeleratzaile ik **azeleragailu**.

---

azelerazio

1 *iz* abiadura-aldaketa denbora-unitateko.

Hona egoera horren arrazoia: praktikan, begietan oinarritzen gara mugimenduari eta **azelerazioari** buruzko informazioa jasotzeko, labirintoaren aparatu korapilatsuan baino gehiago. Irene Aldasoro

Istant batean, ordea, dena aldatu zen Heinkel ehiztarien motorren **azelerazio** hotsarekin: zeruko urdin leuna eta arbola hostoen dardara berde freskagarria. Ramon Saizarbitoria

Txoferrak **azelerazio** labur bat eragin dio motorrari. Pello Lizarralde

Izan ere, autoa gidagailurik gabe denean, gurpilek zuzentzeko joera dute, eta, ondorioz, **azelerazio** laterala zerora gerturatzen da. Berria - Kirola

Ez baduzu ongi ulertzen irakurtzen duzuna, hobe da **azelerazioa** uztea. Askoren artean

2 ***azelerazio angeluar*** *(corpusean ez dago; ETCn **78** agerraldi)*

Buruaren **azelerazio angeluarra** hautematen duten hartzaileak hiru hodi erdizirkularren anpuluen barnean daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

Masen ordez, inertziamomentuak ditugu; indarren ordez, indar-pareak, eta, posizio, abiadura eta azelerazioen ordez, posizio-abiadura eta **azelerazio angeluarrak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konduktu erdizirkularrak, eta sakulu eta utrikulua **azelerazio angeluar** eta linealaren informazioa jaso, hurrenez hurren, eta NSZ-era bidaltzen dute nerbio bestibularraren bidez. ETC-entziklopedia

Bigarren deribatuak zilindroaren zentroaren **azelerazio angeluarrarekin** duen erlazio ematen du. ETC-entziklopedia

Propietate honek autobide- edo trenbide-diseinuan trantsizio-kurba moduan erabilgarria izatea eragiten du, aipatutako kurbak abiadura konstantean doan ibilgailu orok **azelerazio angeluar** konstantea izango baitu. ETC-entziklopedia

Higidura zirkularra denez, azelerazio tangentzialaren eta **azelerazio angeluarraren** arteko erlazioa ezaguna da. ETC-entziklopedia

3 *azelerazio kosmiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hala ere, 1998an aurkitu zen **azelerazio kosmikoak** (2011an, Fisikako Nobel Sariaren erantzule izan zen) konstante kosmologikoarekiko jakin-min eta interesa berpiztu du. ETC-entziklopedia

4 *grabitate azelerazio* *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)*

Neurtutako **grabitate-azelerazioaren** balioari zenbait zuzenketa egin ondoren lortutako emaitzaren eta neurketa-puntuan teorikoki egon beharko litzatekeen erreferentzia-balioaren arteko ezberdintasunari grabitate-anomalia deritzo. ETC-zientzia, zuzenbidea

Fluidoan esfera desitxurarazten duen indarra kalkulatzeko, masa eraginkorra eta **grabitate-azelerazioa** biderkatu behar dira (esferaren masaren eta esferak desplazatzen duen fluidoaren masaren arteko kendura da masa eraginkorra). ETC-zientzia, zuzenbidea

Orain arte aipatutako SI unitateen erabilera azaltzeko, kalkula dezagun 1.000 kg-ko masa duen objektu baten pisua, newtonetan, **grabitate-azelerazioak**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horietako batzuek, eta are kumulu globular batzuek, halako lastertasuna hartu dute **grabitate azelerazioaren** eraginez, ezen Galaxiaren mendetik atera eta infinituan gal baitaitezke. ETC-entziklopedia

Gorputz baten diametroan zehar dagoen **grabitate azelerazioaren** diferentziaren emaitza da. ETC-entziklopedia

Hau, posible da **grabitate azelerazio** baldintzetan, airearen oposizio indar likatsuak kontutan hartuz. ETC-entziklopedia

Sagitario Aentzat estimatutako 3,7 milioi eguzki masako masa batentzat S2k bere orbitaren perizentroan jasaten duen gehienezko **grabitate azelerazioa** 1,5 metro segundo karratukoa da, edo ia Lurraren grabitatearen seiren bat. ETC-entziklopedia

5 *hardware bidezko azelerazio* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Informatikan, **hardware bidezko azelerazioa** softwarea hardwarearen bidez funtzioren bat posible dena baino askoz ere azkarrago egiteko modu bat da, xede orokorreko Prozesatzeko unitate zentral CPU batetik exekutatuz. ETC-entziklopedia

6 *itsasaldiaren azelerazio* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Itsasaldiaren azelerazioa, planeta baten orbitan dagoen satelite natural baten eraginez (Lurraren kasuan, Ilargia), itsasaldiaren indarrak sorturiko efektu bat da. ETC-entziklopedia

---

azelerometro *(corpusean ez dago; ETCn **67** agerraldi)* *iz* azelerazioa neurtzen duen tresna.

Azelerometroa, adibidez, gure mugikorraren posizio eta mugimendua neurtzeko balio duen sentsorea da. ETC-literatura, saiakera

Telefonoa borobiltzeko, estatubatuarrek **azelerometroarekin**, GPS hargailuarekin eta Mini USB sarrerarekin hornitu dute. ETC-prentsa

Bestelako ezaugarri aipagarriak hiru ardatzeko **azelerometroa**, inguruko argia neurtzeko gai den sentsorea eta 3 megapixeleko kamera dira. ETC-prentsa

Zortzi hazbeteko pantaila dauka gailuak, eta touchpad kontrola eta **azelerometroa** jarri diote. ETC-prentsa

Telefono euskarrietan eta tabletetan, haiek dakartzaten sentsoreak erabiltzen dira · **azelerometroa**, giroskopioa, GPS, kamera, eta abar- eta erabiltzailearen aurrean modelo birtuala non gehitu zehazten da horrela, ingurura egokituta. ETC-prentsa

Hiru dimentsioko sistema konplexuagoek **azelerometroak** erabiltzen dituzte x, y eta z ardatzekiko mugimendua neurtzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

MEMSen aplikazio praktiko baten adibide bat da auto-istripuetan airbag-sistemak zabaltzeko baliatzen den **azelerometroa** (azelerazio-/dezelerazio-sentsorea). ETC-zientzia, zuzenbidea

20 Deskriba ezazu era kualitatiboan nola egingo zenukeen it sasontzien azelerazioa neurtzeko **azelerometro** bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ertz finkoan mugimendu bat eragiten zaio probetari eszitagailu elektrodinamiko bat erabiliz, eta **azelerometro** batekin neurtzen da bertako azelerazioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Seinale akustikoak jasotzeko, transduktoreak erabiltzen dira, hala nola **azelerometroak** edo mikrofonoak. ETC-entziklopedia

Gaur egun **azelerometro** baten antza dute eta elektronikoak dira. ETC-entziklopedia

Talka **azelerometroarekin** neurtzen da. ETC-entziklopedia

---

azelga *(ETCn **30** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **zerba** agertzen da)* *iz* zerba.

Azelga batzuk jaten ziharduen, eta metal-ura edaten. Jon Alonso

Maite du irudikatzea zelan egingo ziokeen Luisak errieta letxugekin, tipulekin edo **azelgekin** etxeratzean, prezio onean eta zorro bete intxaur opari eman ziotela esanez. Urtzi Urrutikoetxea

---

azelin *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi)* *iz* ibaietako uraren indarra probesteko turbina.

Zerbaitek amorrarazten badu, ura **azelinak** birarazten ikustea eta entzutea da. ETC-literatura, saiakera

Edo noriako mandoaren antzera, burumakur, **azelinak** martxan nork jarri dituen jakiteko gogorik gabe. ETC-prentsa

Beraren aztarna bakarra, gaur egun, itsas errotak erabiltzen zuen Errota Txikiko **azelina** da, Urumea ibaiaren horman itsatsia gelditu baitzen. ETC-entziklopedia

Azelina edo turbina hidrauliko hau Errota Txiki itsas errotarena izan zen. ETC-entziklopedia

Itsasbeheran, osinaren albatak edo hodiak irekitzen direnean, ura goitik behera erortzen da, **azelinari** (turbinari) eraginez eta, ondorioz, errotaren mekanismoa mugiaraziz. ETC-entziklopedia

Birrintzeko gainontzeko harriak eta harri landutako **azelinak** ere errotan jarraitzen dute, baina euren berezko lekutik at, Espainiako Gerra Zibila gerra zibilaren osteko urteetan desmuntatuak izan baitziren. ETC-entziklopedia

---

azenario **1** *iz* baratze landarea, kono erako sustrai mamitsua, gorrixka eta jateko ona duena*(Daucus carota subsp. sativus)*.

Eta Karmelek hainbat landare-hosto ekartzen zizkion: hauek, luzangak, bi ahizpen irudimenean porru bilakatzen zirenak; horiek, sustrai ilun luze bat zutenak: **azenarioak**. Joan Mari Irigoien

Batek daki esku luzeren bat agertuko ote den **azenario** buruen artean inoren hatzak laztantzera. Javi Cillero

Azenarioak ereingo ditinat ikusi ahal ditzan, eta arbia. Anton Garikano

Gilles, hemen **azenarioak** ala arbixkak hazten dira? Pablo Sastre

2 *iz* landare horren sustraia.

Bere inguruko barazkien usain freskoak, **azenarioen** urrin sarkorrak asaldatu egiten zuten konortegabetzeraino. Karlos Zabala

Sagarra eta **azenarioa** besterik ez zegoen han. Bernardo Atxaga

Herenegun **azenarioak** eta ilarrak egin zizkion, atzo herenegun geratutakoekin konformatu behar izan zuen, gaur indaba pintoak prestatu behar dizkio, eta biharko eltzeko bat geratu diren **azenarioekin**. Josu Zabaleta

Ogia, tipula eta **azenarioak** erosi zituen beheko dendan, lentejak jarri behar baitzituen. Unai Iturriaga

Han ari ziren egosten apioa eta **azenarioa** tipula-geruzaren gainean. Jon Muñoz

Baina hori bai, gutxi saltzen zuen eta harrotasunez aldarrikatzen omen zuen bi urte zeramatzala arroz eta **azenarioz** soilik osaturiko dieta bat janez bizirauten. Harkaitz

Cano

-Urte askotarako -erran zidan Bettinak, **azenario** koloreko ilea keinu ikasi batez baztertuz. Alberto Ladron Arana

---

azento ik **azentu**.

---

azentsore ik **igogailu**.

---

azentu **1** *iz* hitz egitean, silaba jakin bati ezartzen zaion ahoskatze indar handiagoa edo tonu aldaketa.

Dirudienez, euskarak garrantzi linguistiko urria, ia ezereza, eman dio silabak nabarmentzeko egitekoa duen **azentuari**. Lourdes Oñederra

Hau gertaera sinkronikoa da, frantsesezko hitzen eta **azentuaren** arteko erlazio bat, alegia. Isabel Arrigain

Euskara nafarrean gehienbat, bertako **azentu** indartsua dela-eta, sarri galtzen dira **azentu** gabeko bokalak. Koldo Zuazo

Azentuaren gainean, esate baterako, ez zen ezer erabaki, eta premia gorriko gaia da hori. Koldo Zuazo

2 *iz* azentu grafikoa.

Azentu zirkunflexua bezalako zubi bat ikusten nuen. Fernando Rey

"B"az, eta **azentuarekin** "a" gainean. Joxemari Urteaga

Esloveniarrek "evro" nahi dute, lituaniarrek "euras" eta hungariarrek **azentua** jarri nahi dute "o" bokalaren gainean. Berria - Ekonomia

3 *iz* ahoskera.

-Ez hasi berriz -esan zuen Monak, nire **azentua** imitatuz. Fernando Rey

Berak oso ondo hitz egiten zuen espainolez, **azentu** mexikar eta guzti. Bernardo Atxaga

Bigarren solairuan kasinoa, eta han erruleta-mahaiak eta bigungarriz bildutako dadoak feltro berdearen gainean punpaka, eta bakarako karta-emailea atzerritar **azentu** gozoegian xuxurlaka. Oskar Arana

Probintziako **azentu** itxi bat imitatzen zuela, honela esan zuen tonu agintzailez. Irene Aldasoro

Gizonak aurrera hitz egin zuenean, ordea, hasi nintzen poliki-poliki ulertzen, atzerriko **azentua** zuen, bidenabar esan. Matías Múgica

Nahita -dio ilobak- hartzen zuen Brnoko auzo baztertuetako **azentua**, familiako proletarioa zela adieraziz. Pablo Sastre

4 ***azentu dinamiko***

Fonetikaren aldetik, hitz txekiar bakoitzak **azentu dinamikoa** eskaintzen du lehenengo silaban. Lourdes Oñederra

5 ***azentu grafiko***

Zenbaki horien gainean **azentu grafikoa** ezartzen du, baina izena desitxuratzen -eta, ondorioz, ezkutatzen- duen kontua beste bat da. Iñaki Arranz

6 ***azentu kamuts*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Latindar alfabetoan, diakritikoak letraren ahoskatzea modu berezi batean egin behar dela adierazteko erabili ohi dira; adibidez azentu akutua (´) eta **azentu kamutsa** (`), baina munduko beste alfabetoetan beste funtzio asko betetzen dituzte. ETC-entziklopedia

7 ***azentu lexikal*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Jarraian, intonazioari buruzko azterketa egingo dugu, **azentu lexikalak** dauzkaten esaldiak bereiziz. ETC-zientzia, zuzenbidea

CRFek aurreikuspena egiteko sekuentziako elementu bakoitzari buruzko informazio osagarria (informazio morfosintaktikoa, **azentu lexikala** ...). ETC-zientzia, zuzenbidea

8 ***azentu prosodiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

-Azentu prosodikorik gabe. ETC-literatura, saiakera

9 ***azentu toniko*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Inarrosaldi horren kausitzeko, hizkuntzaren dantzari eta zuberotarraren doinuari bermatu ginen, euskalkiaren **azentu tonikoa** oinarritzat hartuta, eta bertsoen idazte metrikoa bazter utzita. ETC-prentsa

Uste dut ezingo dugula hori geldiarazi, baina behintzat balioa eman behar diogu bretoierak duen **azentu tonikoari**. ETC-prentsa

Bigarren oharra bosgarren oinaren moldaketari dagokio: Calder?nek, hoskidetasuna bermatzeko helburuarekin, 'aunque' hitzaren **azentu tonikoa** lekuz aldatu zuen. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 ***azentu zirkunflexu***

Azentu zirkunflexua bezalako zubi bat ikusten nuen. Fernando Rey

Joxemigel Barandiaranek, esaterako, Ataunen entzundako ipuinak transkribatzean, **azentu zirkunflexua** jartzen zion gainean: mendîk, artôk, semêk, aingerûk. Xabier Mendiguren Elizegi

11 ***azentu zorrotz*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Azentu zorrotza (´) zenbait hizkuntzetan hainbat ezaugarri adierazteko erabiltzen den ortografia ortografia zeinua bat da (esate baterako, irekiera, intentsitatea edo tonua). ETC-entziklopedia

Kutzukeriak, **azentu zorrotz** bat exijitzen du. ETC-prentsa

Aspirazio bigunez eta **azentu zorrotzez** "ez da euriak usteldua" esan nahi du. ETC-literatura, saiakera

12 ***esaldien azentu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Agian, belarrira oso ongi ematen diguten bertsoek lortzen dute doinua eta **esaldien azentuak** parean etortzea. ETC-prentsa

---

azentuazio *iz* azentua jartzea; horren ondorioa.

Chavezek ondo hitz egin zuen, pausaldiak eginez, tonu egokiarekin eta **azentuazio** zehatzarekin. Pako Aristi

Christophersen irakurketa erabatekoa izan zen; **azentuazio** aldetik ezberdina eta kontrastantea, eta tenpi azkarrak markatuz. Berria - Kultura

---

azentudun *izond* azentua duena.

Esaterako, **azentudun** bihurtzen badut silaba bat, badirudi osagai adierazgarri desberdinak biltzen ditudala puntu berean. Isabel Arrigain

Hori Azkoitiko **azentudun** autonomista izatea baino okerragoa dok ia, joder! Unai Iturriaga

Ez zuen ezer britainiarra esan ohi den zurruntasun horretatik, eta esker onak eta asko eman zizkidan nire opariagatik, Mantxaz bestaldeko **azentudun** frantses batean. Josu Zabaleta

---

azentuera *iz* hizkuntzalaritzan, azentua ahoskatzeko edo erabiltzeko modua.

Hurch-ek proposatu prosodiaren analisiak ate bat irekitzen dio **azentuera** ezberdinen esplikazioari, batik bat azentu nagusi eta laguntzaileen jokabide ezberdinei. Lourdes Oñederra

---

azentugabe *iz* azenturik ez duena.

Hala, silaba **azentugabeek** azentudunekiko izaten duten ahuleziagatik, silaba **azentugabeetako** bokalak galtzeko joera handitzen da. Lourdes Oñederra

Har ditzagun, lehenik, **azentugabe** azaltzen diren laguntzaileak; adibidez, has "du", John has read the book "Jonek liburua irakurri du" perpausean, baina ez does (hanpatua), John does read books "Jonek liburuak irakurri egiten ditu" perpausean. Itziar Laka

---

azeptatu, azepta(tu), azeptatzen du *ad* onartu.

Zeren eta, aitona Nikolasek ez bezala, aitak ez baitzuen **azeptatzen** eta ontzat hartzen gure arbasoek Noainen eta Amaiurren izan zuten jokabidea. Joan Mari Irigoien

---

azepzio *iz* adiera.

Ez, ez nau betetzen mozkeria horrek, eta hitzak aurreneko erdia motz batetik hartua balu ere, ez juxtu nesken hankartekotik, beste **azepzio** peioratibo ugarietakoren batetik baizik. Patziku Perurena

Erro hura, lor-ena alegia, sinalatzen duela baitirudi oraindik alor, arlo hitzaren zenbait **azepziok** ere: lan sail, tarea, eginbehar... Patziku Perurena

---

azerbaijandar *izlag/iz* Azerbaijangoa, Azerbaijani dagokiona; Azerbaijango biztanlea.

Sarra Abbasova eta Gundul Ismaylov haltera **azerbaijandarrek** positibo eman dute Paralinpiar Jokoetan, Nazioarteko Paralinpiar Batzordeak atzo jakitera eman zuenez. Berria - Kirola

---

azerbaijanera *(corpusean ez dago; ETCn **72** agerraldi)* *iz* Azerbaijanen eta inguruko zenbait eskualdetan mintzatzen den hizkuntza.

Azerbaijanera altaitar hizkuntza da, turkiar adarrekoa. ETC-entziklopedia

Hiztun kopuru handiena duten hiru hizkuntza nagusiak turkiera, **azerbaijanera** eta turkmenera dira. ETC-entziklopedia

Elkarrekiko ulermen maila handia dute turkieraren eta gainera oghuz hizkuntzen artean (**azerbaijanera**, turkmenera, qashqaiera, gagauzera). ETC-entziklopedia

2011n 667.499 biztanle zituen, gehienak azerbaijandarrak, **azerbaijaneraz** mintzatzen direnak; gutxiengo kurduak, armeniarrak eta asiriar kristauak daude. ETC-entziklopedia

Azerbaijandarrei leporatu zizkieten haien kultura eta gizarte arazoak, eta askok **azerbaijanera** ikasteari uko egin eta errusiera hartu zuten bigarren hizkuntzatzat. ETC-prentsa

Bi ahizpek ama hizkuntza dute errusiera, eta baita **azerbaijanera** ere. ETC-prentsa

Zortzi lehengusu-lehengusinak haren inguruan batzen ziren, eta buruz ikasitako herri istorioak kontatzen zizkien, **azerbaijaneraz**. ETC-prentsa

Baina egun, Baltikoko politika izan ote den pentsa liteke Kaspio ertzean: **azerbaijanera** alfabeto latinora aldatu zuten, eta bide eta turismo-seinale gehienak bertako hizkuntzan eta ingelesez daude. ETC-prentsa

Adibidez, Bakun (Azerbaijaneko hiriburuan), **azerbaijaneraz** ikasten duten haur azeriarrak gehiago identifikatzen dira azeriar identitatearekin errusieraz ikasten duten haur azeriarrak baino. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azeri 1 *iz* txakurraren familiako ugaztun haragijalea, otsoa baino txikiagoa, buru-zabala eta mutur-zorrotza, buztana zuzena eta iletsua duena, ardiei, oiloei eta kidekoei maltzurkeriaz erasotzen diena eta guztiz aintzat hartzen den larru iletsua duena *(Vulpes vulpes)*. ik **luki**.

Eta bizpahiru **azeri**, eta oreinen bat edo bertze ere ehizatu zituen. Joan Mari Irigoien

Ez dut **azeririk** ikusi hemen kanpoan nagoenez geroztik. Mirentxu Larrañaga

Benetako **azeri** larruak, eta a zer luzera! Xabier Paya

Ikusi genion aldaketa bakarra, handik laster, Peko Arrüan erosi zuen **azeri** larruzko oski berri parea izan zen. Itxaro Borda

Herenegu arratsean **azeriak** bi artantzu bota zituela Mendibilen... Patziku Perurena

Mendian **azeriak** akabatzeko pozoia bota, zakurrek jan eta horrelaxe izan zuten azkena. Gotzon Garate

Steffi zutitu, mantala berdindu eta zelata egin zien Dembaren eskuei, orduantxe desagertzeko zorian kaparen azpian, **azeriak** zuloan bezala. Anton Garikano

2 *izond* pertsonez mintzatuz, maltzurra.

Zergatik ez don Leonardo alkateak, bera baino milaka bidez argiago eta **azeriagoa** zenak? Felipe Juaristi

Besta bururatu ondoan, delako Atsoa eta Tupina jende **azeri** bihurtu horiek biluzten ziren. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azeri zaharra da zure aita jaun hori! Matías Múgica

Peter gero eta **azeriago** ari zen. Julen Gabiria

Nik hogeita hamalau urte nituen orduan eta, gehiegi esatea ez bada behintzat, **azeri** zaharra nintzen gona kontuetan ordurako. Hasier Etxeberria

Nahiz eta zirujau jantzirik ekarri behar izan, **azeri** halakoak! -esan zuen Okendok-. Edorta Jimenez

3 *a zer azeria*

-A zer azeria zaren negoziotan, Lucy -diot ahopetik. Oskar Arana

4 *Artikoko azeri* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Ikusgai jarri dituzten animalia gehienak bitxiak eta ederrak dira, baina protagonista jakin batzuk ditu aurtengo erakusketak, Euskal Herrian inon aurkitu ezin daitezkeen animaliak, hain zuzen ere: **Artikoko azeria**, Vietnamgo txerria, Kamerungo ardia, Asiako faisaiak, titi tximinoak, ahuntz nanoa edota Australiako loroak, besteak beste. ETC-prentsa

5 *azeri arrunt* *(corpusean ez dago; ETCn **73** agerraldi)*

Azeri arrunta ("Vulpes vulpes") "Canidae" familiako haragijale txikia da. ETC-entziklopedia

Ugaztunen taldea, erbinude zuri eta erbinude arruntek, **azeri arrunt** edo gorriek, igaraba igarabek eta 2003. urtetik babestuak dauden azeri artikoek osatzen dute. ETC-entziklopedia

Beste ohiko biztanle batzuk azeri zuri eta **azeri arrunt** edo gorriak, bisoi amerikarrak, elur-orein etxekotuak, erbinude erbinude arrunt eta erbinude zuri zuriak, hartz arreak, ipar-katamotzak, jatunak eta otsoak dira. ETC-entziklopedia

6 *azeri artiko* *(corpusean ez dago; ETCn **93** agerraldi)*

Azeri artikoa ("Vulpes lagopus") txakurraren familiako haragijale txikia da. ETC-entziklopedia

Ugaztunen taldea, erbinude zuri eta erbinude arruntek, azeri arrunt azeri gorriek, igaraba igarabek eta 2003. urtetik babestuak dauden **azeri artikoek** osatzen dute. ETC-entziklopedia

Erosleak larruak sailkatu bitartean, Jim begi zabalik ibiltzen zen biltegian barrena, Alaskako otso zuri, **azeri artiko**, katamotz eta jatun larruak ukituz. ETC-literatura, saiakera

Kolore tasunaz ari bagara, esate baterako, terminoa ia nulua izango da poloko hartz zuriarentzat (ehunetik ehun kolore bakarrekoa), apur bat handiagoa **azeri artikoarentzat** (zuria neguan eta iluna udan) eta askoz handiagoa mihi-arrainarentzat edo olagarroarentzat (gai baita inguruabarren arabera aldatzeko kolorea). ETC-zientzia, zuzenbidea

7 *azeri-buztan* ile moduko hostoak dituen landare latza *(Equisetum hiemale).*

Azeri-buztan zenbait aurkitu nituen (nire landare kuttunetako bat) karrilez harantzagoko lur puska lohitsu batean, eta zirrara handia egin zidaten. -Zein da ira-belarraren eta azeri-**buztanaren** arteko aldea, Potter? Xabier Olarra

Haietako batek, nire albora etorririk, **azeri buztan** batez jo ninduen, baina nik labana atera ahal izan nuen eta ipurtaldean zauri bat egin nion. Patxi Zubizarreta

Eta Templeren kosmogonia zer?, egiten nuen neure artean, **azeri-buztanen** artetik paseatuz. Xabier Olarra

Dakien batek preparaturik, **azeri buztan** jatea. Herria

Denek ezagutzen dugu lau **azeri buztanekin** egina den kurutzea, ikusten baita leku guzietan, izan dadin hil-harrien gainean ala euskal bixkotxaren gainean. Herria

8 *azeri dantza* *(corpusean ez dago; ETCn **79** agerraldi)*

Axeri-dantza edo **azeri-dantza** Hernanin, Andoainen, Adunan, aldaera ezberdinekin, dantzatzen den dantza herrikoia da. ETC-entziklopedia

Egurtzen duten bakoitzean Hernaniko **azeri-dantzarekin** gogoratzen da, jaietan bizkarrean maskuri-kolperik ez jasotzeko nola ibiltzen ziren dantzari buruhandiengandik iheska. ETC-literatura, saiakera

Azeriaren jokabide hori **Azeri-dantzan** irudikatzen da, zeinean komunitate osoak biribila osatzen duen, hasiera/amaiera bereizketarik gabe, azeriaren muturrak eta isatsak bat egitean gertatzen den moduan. ETC-literatura, saiakera

Hernanin, **Azeri-dantza**: jende artaldea kalean behera oinez, eta azeria (soka bati heldutako dozena gizon) zeinahi ataritatik ustekabe azaldu litekeela, ardiak sokaz inguratu eta maskuri kolpez berotzeko. ETC-prentsa

Azeri dantza, zikiro afaria, kontzertuak eta pilota partidak izango dira Andoaingo jaietan larunbata bitartean. ETC-prentsa

Azeri dantza aspaldikoa da Hernanin, Andoainen, Adunan, "eta garai batean baita Lekeition ere". ETC-prentsa

Irrikan egon ohi dira hernaniarrak **azeri-dantzaren** doinua noiz entzungo. ETC-prentsa

Hernaniko festetako ekintza jendetsuenetakoa, berriz, **azeri dantza** da: azeri batekin lagun talde bat soka baten inguruan ibiltzen da, maskuria eskuan: herriko izkinetatik irten eta jendea borobilean biltzen dute jotzeko. ETC-prentsa

Azeri dantza honen izena txit oker endelegatzen edo konprenitzen dute gipuzkoar gehienek. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *azeri gorri*

Horietarik batek zien erran Euskaladunei haien bekatu nagusia zela, **azeri gorriak** izatea, erran nahi baita, bekaizkeria. Xipri Arbelbide

10 *azeri hegalari*

Hauen artean daude ipar Amerikako elur-oreina, idi musketaduna, Seychelle Uharteetako **azeri hegalaria** eta lemur marroia. Berria - Gaiak

11 *azeri mahats*

Benetako edalontziak dituzte, eta hiru motatako benetako ardoa: basaran-ardoa, **azeri-mahatsez** egindako ardoa eta udaberri--lorez egindakoa, eta Erreginak zerbitzatzen ditu, baina botilek hain pisu handia dutenez, zerbitzatzearen plantak baino ez ditu egiten. Julen Gabiria

12 *azeri-txakur*

Koronela, oker ez banago, zure txakurrari tiro egiteko asmoa zenuen; itxura guztien arabera, aurrerantzean ez dizulako balio izango **azeri-txakur** gisa, ezta? Mirentxu Larrañaga

Azeri-txakurrek, polizia-txakurrek eta, berrikiago, ekipaje piletan marihuana eta beste narkotiko batzuk bilatzeko trebaturiko txakurrek, denek erakusten dituzte giza sudurrak iristerik ez daukan usaimen-ahalmenak. Irene Aldasoro

13 *azeri zahar*

Ni **azeri zaharra** nauk eta kinka larri honetatik aterako haut. Lopez de Arana

Ile beltzeko gizon mehar eta atsegina zen, jantzi eta oinetako garbiak, besoan xingola eta **azeri zahar** eta lagunkoi baten aurpegi arrunt eta berezia zeuzkana. Urtzi Urrutikoetxea

Zer erran? Ez dugula gauza berririk jakiten, agertu zaigula, aldiz, denek ezagutu dugun **azeri zaharra**. Herria

Azeri zaharra da zure aita jaun hori! Matías Múgica

Barre algarari ezin eusteko zorian egon zen notarioa, ahots oraindik indartsu baina errezo kutsukoaz, **azeri zaharraren** diskurtso loratua irakurtzen entzun zuenean. Bego Montorio

Jan Svorada **azeri zaharra** izan zen bizkorrena ailegaeran, eta sasoiko bigarren garaipena lortu zuen (Trentinoko Giroan lehenengoa). Berria - Kirola

Azeri zaharrak filosofoaren hitzen zentzua bestelakatu zuen. Elena Touyarou

Nik hogeita hamalau urte nituen orduan eta, gehiegi esatea ez bada behintzat, **azeri zaharra** nintzen gona kontuetan ordurako. Hasier Etxeberria

Gure president sozialista **azeri zaharrak**, François Miterrand zenak, erraiten zuen behar zitzaiola denborari utzi denbora. Berria - Euskal Herria

14 *azeri zulo*

Kanpoko mugimenduak urritzearekin **azeri zulotik** atera zen, zikin, urrin tzar eta arranpaz konkortua. Itxaro Borda

Bazen han azkonar-zulo eta **azeri-zulo** ugari, pixatoki ezin hobeak denak; eta, orein-arrastoak, haiei atzetik segika ibiltzeko agian; loreak, nonahi, biltzeko; edota, tximeletak, ehizatzeko. Mirentxu Larrañaga

15 *azeri zuri*

Juvenalia ere lehenago etorria zen, bere hanka herrenarekin, oso dotore jantzita, soineko zuri batez, gainean **azeri zuri** larruzko berokia zuela. Felipe Juaristi

16 *azeriaren ezteiak*

Sasizientzian, berriz, erran zahar ez hain zuhurrak dioen bezala, **azeriaren ezteiak**...! -eta eskuak bururat berriro ere zeramatzala, irriz erran zuen. Joan Mari Irigoien

17 *itsas azeri* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Itsas azeria (Alopias vulpinus). ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azeri bat (5); **azeri batek** (5); **azeri begi** (6); **azeri begik** (3); **azeri buztan** (4); **azeri hark** (3); **azeri horrek** (3); **azeri larru bat** (3); **azeri larruak** (4); **azeri larruzko** (4); **azeri txakur** (4); **azeri zahar** (5); **azeri zaharra** (11); **azeri zulo** (4); **bere azeri** (3); **bi azeri** (3); **edo azeri** (4); **zuen azeri** (5)

azeria baino (3); **azeria bezain** (3)

azeriak ere (3)

azeriek badituzte zuloak (7)

---

azeriar *izlag/iz* Azerbaijangoa, Azerbaijani dagokiona; Azerbaijango biztanlea.

Kaukaso inguruan gaude eta eskualdeotan herri nahasketa handia dago: turkiarrez gain, georgiarrak, **azeriarrak**, kurduak, armeniarrak... Jon Arretxe

Azeriarrak populazioaren %22 dira, kurduak %8, gilaki eta mazandaraniak %7, luriak %3, ahuazi tribu arabiarrak %3, balutxeak %2 eta turkmenak %1,5. Berria - Harian

---

azerikeria *iz* maltzurkeria.

Haren arrazakoek berezkoa duten **azerikeria** liluragarriaz gain, adore hezigabeaz horniturik zegoen. Karlos Zabala

-Harry Potterri inoiz idazten ez dioten lagunak? -esan zion Dobbyk **azerikeriaz**. Iñaki Mendiguren

Hipias ez zen teoriaz zamatzen; ez zion bere buruari inongo baliabiderik debekatzen, eta **azerikeria** guztiak erabiltzen zituen bere helburuak lortzeko. Jon Muñoz

Ez dakit xuxen denetz ala irudi bat zenez, bainan edozein gisaz, segur trikimailu eta **azerikerietan** trebe zela Jose Maria Aznar, gobernuburu izan den zortzi urte hauetan. Herria

---

azeriki *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) adlag* maltzurki. ik **azeri 2**.

Nire pisukide ohiak, Z eta nire arteko begirada konplizeez agudo jabeturik, ezin komenigarrikiago eta aski **azeriki**, itzuli bezain laster berriro egin du alde gu parez pare solasean utziz. ETC-literatura, saiakera

Azeriki abegikor eskaini zidan bere taxia hitzordura garaiz iristeko. ETC-literatura, saiakera

---

azerikume *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)* **1** *iz* azeriaren umea.

Beste bi **azerikumeak**, Adargaitz eta Sasitrauka, aitamen hatzetarik ibiltzen ziren aspaldi honetan eta ohointza eta ihizian zeuden oihanean. ETC-literatura, saiakera

Azken hilabeteetan hazi eta heldu egin zen, **azerikume** bat azeri bihurtzen den bezain bat-batean. ETC-literatura, saiakera

Aharra bitartean, azeri azaldu da **azerikumea**. ETC-literatura, saiakera

Treadway goiz oheratu zen, eta lakioan **azerikume** bat harrapatzen zuela amets egin zuen. ETC-literatura, saiakera

Lau **azerikume** iletsuak labanarekin banan-banan akabatu eta leize-zulotik kanpora bota zituenetik, azeriaren mendekuaren zain zegoen aitona. ETC-literatura, saiakera

Etxean azerientzako kaiolak dauzkat, baina **azerikumeentzat** bakarrik balio dute, haiek erraz fio direlako. ETC-literatura, saiakera

Azeri talde guztietan azeri zaharrak eta **azerikumeak** izaten dira. ETC-literatura, saiakera

Ikusten haut, oker ez banabil, umea ia artean, korrale ateraino goseak iristen **azerikumeen** antzera. ETC-literatura, saiakera

Isiltasuna nagusi den ingurune eder honetan, bat-batean **azerikume** bat gerturatu zaigu, gosez. ETC-prentsa

2 *iz* pertsona maltzurra. ik **azeri 2**.

MARIA LUISA.- Hara, niri ez etorri zurikeria merkeekin. Kendu behingoz maskara hori, ager dadila azpian dagoen **azerikumea**. ETC-telebista

---

azertatu, azerta, azertatzen *(corpusean **azartatu** soilik)* du *ad* asmatu, itua jo.

Hamargarren asaltoan Cassius Clay errekuperatu egin dela ematen du Baina hamaikagarrenean Joe Frazierrek lauzpabost kolpe **azartatu** ditu eta Cassius Clay balantzaka hasi da indarrak galdurik. Joseba Sarrionandia

---

AZERTY *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)* **1** *iz* herrialde frankofonoetan erabiltzen den teklatu edo klabierra.

QWERTY giltzadi ingelesaren aldaera da **AZERTY** giltzadia, frantses hizkuntzaren grafiari QWERTY baino hobeto egokitzeko sortua. ETC-entziklopedia

2 ***AZERTY teklatu*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

M tekla, adibidez, L teklaren eskuinean kokatuta dago **AZERTY teklatuan**, eta tekla alfanumerikoen blokeko 0tik 9rako zenbakiak posizio berean badaude ere, teklarekin batera sakatu behar dira idatzi ahal izateko, bestela azentudun letra xeheak eta ikurrak idazten dira. ETC-entziklopedia

---

azetato **1** *iz* azido azetikoaren gatza edo esterra.

1999ko martxoan, enpresak milaka litro butilo **azetato** isuri zituen Castaños errekara. Berria - Euskal Herria

2 ***binil azetato*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ohiko kopolimeroa **binil azetatoa** da, disoluzioan irun daitekeelako tindagaiak zurgatzen uzteko adina biguntzen diren zuntzak lortzeko. Zuntz akriliko horiek usatzeak abantaila hauek ditu: kostu txikikoak dira zuntz naturalarekin alderatuta, eguzki-argiarekiko erresistentzia hobea dute eta sitsen erasoekiko erresistentzia handiagoa dute. ETC-entziklopedia

3 ***polibinil azetato*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Polibinilo azetato edo **polibinil azetatoa** (PVAc). ETC-entziklopedia

---

azetiko **1** *izond* azidoez mintzatuz, alkohol etilikoaren oxidazioaren ondoriozkoa.

Beste batzuek, berriz, glizerina eta gantz-azido gantzak; gantz-azidoen adibide ezagunetariko bat azido **azetikoa** da, ozpinaren osagai nagusia. Irene Aldasoro

Azetilkolina da aldaketa horren eragilea, azido **azetikotik** eta kolinatik -zeluletan egon ohi diren bi substantziatatik- unean-unean ekoizten den substantzia. Irene Aldasoro

2 ***anhidrido azetiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Azetolisia datza polenak Erdtmanen likido deritzon nahasketaz tratatzean, alegia, **anhidrido azetiko** (9/10) eta azido sulfurikoz (1/10) eginiko nahasketaz. ETC-zientzia, zuzenbidea

2005eko abenduan onartutako lege antinarkotiko batek Afganistanek erregistroak edo erregulazioak garatzea eskatzen du, **anhidrido azetikoa** arakatzeko, biltegiratzeko eta edukitzeko. ETC-entziklopedia

3 ***azido azetiko***

Beste batzuek, berriz, glizerina eta gantz-azido gantzak; gantz-azidoen adibide ezagunetariko bat **azido azetikoa** da, ozpinaren osagai nagusia. Irene Aldasoro

4 ***azido azetiko glazial*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Azido azetiko puruenari **azido azetiko glazial** deritzo; izan ere, izozte-puntuaren inguruko hozte frakzionatuen bidez garbitzen da azido azetikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mozketak koloratzaile-soluzioan (% 0,1 luxol fast blue % 96 etanoletan, % 10 **azido azetiko glaziala** gehituz) murgildu gau osoan zehar 56ºC-tan mantenduz. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azetil *(corpusean ez dago; ETCn **314** agerraldi)* **1** (hitz elkarketan lehen osagai gisa) azetiloaren forma laburtua. ik **azetilo**.

Bakterio askotan PHBa sintetizatzeko **azetil** koentzima A (**azetil**-coA) erabiltzen da eta lehen urrats batean azetoazetil-coA bihurtzen da eta produktu hau bai polimeroaren biosintesian zein bere degradazioan agertuko da. ETC-prentsa

Azetil fosfatotik eta ADPtik abiaturik (biak 0,01 mol L-1-eko kontzentrazioan), zein da entzima bidez lor daitekeen ATParen kontzentrazio maximoa? ETC-zientzia, zuzenbidea

Erabil ezazu aipatu dugun estrategia fenoletik abiatuta 4-**azetil**-2-klorofenola sintetizatzeko. ETC-zientzia, zuzenbidea

II. faseko entzimen artean honako hauek daude: glukuronosil transferasak (UGTak), sulfotransferasak (STak), arilamina N-**azetil** transferasak (NAT1 eta NAT2), glutation S-transferasak (GSTak) eta metil transferasak (katekol O-metil transderasa, tiopurina S-metil transferasak eta zenbait N-metil transferasa). ETC-zientzia, zuzenbidea

Peptidoglikano Mureina N-**azetil**-glukosaminaz eta N-**azetil**-muramikoz osatutako molekula da, 4 aminoazidoekin lotuta Zelula hormak bakterioa babesten du presio osmotikoaren aurrean. ETC-entziklopedia

Egitura kimikoari dagokionez, zetonak edo zeto azidoak dira, eta **azetil**-CoA da beren sorreran parte hartzen duen aitzindaria. ETC-entziklopedia

Kimikoki aminoazukre bat da. Glukosaren bigarren karbonoko hidroxilo taldea (- OH) amina talde batek (- NH2) ordezkatu du eta ondoren honi Azetilazio **azetil** talde bat (-CO-CH3) gehitu zaio. ETC-entziklopedia

2 ***azetil kloruro*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

1853an Charles Gerhardtek sodioarekin eta **azetil kloruroarekin** nahastu zuen: azido azetilzalizikoa, baina ez zen merkaturatu. ETC-prentsa

Orrialde-bazterrean dauden potentzial elektrostatikoaren mapetan bi muturretako adibideak ageri dira: **azetil kloruroa** eta azetamida. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azetileno *iz* hidrokaruro gaseoso ez saturatua, kalzio karburoaren eta uraren erreakziotik lortzen dena.

Zer zen **azetilenoa** irakatsi zion, zer zen oxigenoa, zein zen lehenik itxi behar zen balbula, nola hustu behar ziren hodiak gero. Koldo Izagirre

---

azetilkolina *iz*

Nerbioan datorren bulkada elektriko ahulak **azetilkolina** askarazten du (kaltzio ioien mugimendua estimulatzen duen eta, horren ondorioz, muskulu-zuntzaren uzkurtzea eragiten duen substantzia kimiko bat da **azetilkolina**). Irene Aldasoro

Lotune hori beste bulkada batzuei erantzuteko prest egon dadin, muskulua uzkurtu bezain laster kendu behar da **azetilkolina**. Irene Aldasoro

Behin sinapsia gainditu eta gero, **azetilkolinak** dendritaren zelula-mintzaren irazkortasuna aldatzen du eta horrenbestez beste nerbio-bulkada bat sortzen. Irene Aldasoro

Azetilkolina desegiten duena kolinesterosa da, nerbioetan normalki egoten den substantzia bat. Irene Aldasoro

---

azetilo *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi)* **1** *iz* azido azetikoari dagokion erradikala. ik **azetil**.

Jakina denez, haren formazioa **azetilo** erradikalek O2-arekin eta NO2-arekin duten erreakzioetan gertatzen da, 4.22. eskeman erakutsi zen moduan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azetil-A koentzimaren (azetil-CoA) **azetiloaren** oxidazio osoa (CO2 arte) gertatzen da bide honetan. ETC-entziklopedia

2 ***azetilo talde*** *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

NodB kitina-oligosakarido desazetitasa bat da; **azetilo taldea** kentzen du muturreko azukre ez-erreduzitzaileetik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azetil-CoA metabolismoan funtsezko zeregina betetzen duen molekula bitartekaria da, **azetilo taldea** duena A koentzimari lotua. ETC-entziklopedia

Hidrolisi honen ondorioz kolina eta **azetilo talde** bat sortzen dira. ETC-entziklopedia

Azido inorganikoetan (klorhidriko, sulfuriko...), baina, disolbagarria da, **azetilo taldea** galtzean kitosanoa bihurtzen baita. ETC-entziklopedia

---

azetilsaliziliko **1** *iz* azidoez mintzatuz aspirina osatzen duena.

Mundu osoko botikarik ezagunenetarikoa da Bayer etxeak merkaturaturiko azido **azetilsalizilikoa**, Aspirina. Berria - Gaiak

8.000ko marka berreskuratu ez zuen arren, bezperako biharamuna bederen gainditu zuten gure indizeek, azido **azetilsalizilikotik** edan balute bezala. Berria - Ekonomia

2 ***azido azetilsaliziliko***

Mundu osoko botikarik ezagunenetarikoa da Bayer etxeak merkaturaturiko **azido azetilsalizilikoa**, Aspirina. Berria - Gaiak

8.000ko marka berreskuratu ez zuen arren, bezperako biharamuna bederen gainditu zuten gure indizeek, **azido azetilsalizilikotik** edan balute bezala. Berria - Ekonomia

---

azetona **1** *iz* konposatu organikoa, usain oneko likido koloregabea eta sukoia, disolbatzaile gisa erabiltzen dena.

Lehengaia produktu kimiko ezberdinetan mainatuz, **azetonan** besteak beste, kafe molekula desegitera heldu zen, baba ustelezin bihurtuz. Berria - Kultura

2 ***azetona peroxido*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Poliziak baieztatu ez zuen datu baten arabera, lehergai hori **azetona peroxidoa** zen. ETC-prentsa

Oso lehergarria izan arren, bere leherketa eragiteko detonagailuak behar dira (orokorrean **Azetona peroxido** TATP edo Hexametileno triperoxido diamina HMTD). ETC-entziklopedia

---

azetoso *izond*

Baina, usteltzeaz gainera, gerta daiteke, eta halaxe gertatzen da maiz, landare gaien hartzidura **azetosoak** urdailaren barruan gasa sorraraztea (edo beste barrunbeetan, bestelako arrazoiengatik), gorpua azalerarazi duen dilatazioa sortzeko nahikoa dena. Koro Navarro

---

azi ik **hazi²**.

---

azidifikatu, azidifika, azidifikatzen *(corpusean ez dago; ETCn **29** agerraldi)* **1** da/du *ad* azidotu.

Arktikoan, klima ia tropikala izatera iritsi zen, itsasoak izugarri **azidifikatu** ziren eta landaredia ikaragarri zabaldu zen lehorraldean. ETC-prentsa

Jogurta, hartzitu, **azidifikatu** eta gatzatutako esnea da. ETC-prentsa

Izan ere, CO2a uretan disolbatzean, urak **azidifikatu** egiten dira eta horiek silikatoak disolbatzen dituzte. ETC-prentsa

Orobat erakutsi zuten aztarnategia azkar degradatzen ari zela eta **azidifikatzen**, lurra drainatzen ari zelako seguru asko. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gaina (gantza uretan erako emultsioa) **azidifikatuz** eta irabiatuz faseen inbertsioa lortzen da, hau da, gurina izeneko emultsioa, ura gantzetan motakoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Endozitosiaren ostean, endosomak **azidifikatuta** duen medioan, LDLR eta ApoB-100 proteinen arteko afinitatea jaisten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrek zitosola **azidifikatzen** du, eta Na/H kogarraiatzaile baten bidez mantentzen da oreka; kogarraiatzaile horrek ehunaren estromatik zelulara sartzen ditu ioi horiek. ETC-zientzia, zuzenbidea

Edmond Frémy-k, fluorra eratzeko hidrogeno fluoruro puruaren elektrolisia gauzatu zitekeela defendatu zuen, eta **azidifikatutako** potasio bifluorurotik (KHF2) abiatuz lagin anhidridoak lortzeko metodo bat asmatu zuen. ETC-entziklopedia

2 (era burutua izenondo gisa)

Lurzoru **azidifikatu** eta hareatsuetan bizi da. ETC-entziklopedia

Klima hezea duten lur silizeo edo **azidifikatuetan** bizi da, esaterako ETC-entziklopedia

---

azidifikatzaile *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* *iz* azidifikatzen duena.

Eta honi guztiari, pertsona bakoitzak urtero kontserbatzaile, koloratzaile, **azidifikatzaile**, antioxidatzaile eta halakoen artean kontsumitzen dituen 4 edo 5 aditibo kiloak erantsi behar dizkiogu! ETC-zientzia, zuzenbidea

Kontserbazio-metodo batzuetan pH azidoak lortzea bilatzen da mikroorganismoen hazkundea inhibitzeko, esaterako, metodo tradizionaletan ozpinetan edo eskabetxean kontserbatzean, eta beste metodo batzuetan gehigarri **azidifikatzaileak** gehitzen direnean (azido askorbikoa, sulfato sodikoa, eta abar). ETC-zientzia, zuzenbidea

"Euri azidoak" nahaste bustiari (euri, elur, lanbroa...) eta lehorrari (partikula eta gas **azidifikatzaileak**) egiten dio erreferentzia. ETC-entziklopedia

---

azidifikazio *(corpusean ez dago; ETCn **76** agerraldi)* **1** *iz* azidotzea, azidoago bihurtzea.

Itsasoak ez ziren leku hobeak, inolaz ere, **azidifikazioak** eta berotzeak espezie askoren iraungitzea edo hiltzea ekarri baitzuen. ETC-prentsa

Azidifikazio honen azterketak 1986. urtean hasi zituzten Insignis pinuen basoetan. ETC-prentsa

Erraz ekartzen da da Kaliforniatik intsignis pinua etekin azkarra ematen duelako, baina gero hasten dira konplikazioak: harrak, haiek hegazkinetik fumigatu beharra, lurraren **azidifikazioa**. ETC-prentsa

Helburu horrekin, **azidifikazio** elektrokimikoko zelulak sortzen eta probatzen ari dira. ETC-prentsa

Azidifikazio-prozesua betetzea non-nahi dauden tiobaziloen esku geratzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

- Bikarbonato ioien birxurgapena eta hidrogeno ioien jariapena, eta, ondorioz, gernuaren **azidifikazioa**. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestetik, bakterioa barnean dagoela endosomaren mintza zulatuz endosomaren **azidifikazioa** geldiarazten dute, bakterioa endosomaren barnean bizirautea baimenduz. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 ***ozeanoen azidifikazio*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Ozeanoen azidifikazioa Lurreko ozeanoen pH-aren jaitsiera konstantea da, atmosferako karbono dioxidoaren (CO2) xurgapenaren ondorioz sortua. ETC-entziklopedia

Dinamika edo krisiaren kausa nagusi bi sumatzen ditugu: bata aldaketa klimatikoa (beroketa globala, **ozeanoen azidifikazioa**, ekosistemen eta gizarte hondamendiak) eta bestea petrolioren gailurra (lurrean zegoen petrolioaren erdia erreta, energia merkearen garaiak amaitu dira). ETC-prentsa

Bertze lau prozesu mugak haustear daude gure planetan: ur gezaren kontsumo edo erabilera globala, basoak laborantza bihurtzea, **ozeanoen azidifikazioa** eta fosforoaren zikloan aldakuntza. ETC-literatura, saiakera

---

azido *(ETCn **15.154** agerraldi)* **1** *izond/iz* mihian ozpinaren antzeko sentipena eragiten duena; kimikan, base konposatuei hidrogeno-ioi bat eransten dien substantzia.

Badirudi berez sortzen zaien propietatea dutela ezaugarri hori, lur horretan zuku **azido** eta garratza aurkitzen baita azpian. Santiago Iruretagoiena

· Gogoan dut amak astindu ederra eman ziola erratzarekin -Ron pentsakor geratu zen **azidozko** txupatxusen kaxari begira-. Iñaki Mendiguren

Edonon jota ere, munstroen larru **azido** kiskalgarria lurruntzen hasten zen, zauriak irekitzen zitzaizkien, eta azkenean gorputz osoa erreta geratzen zitzaien, mara-mara erortzen ziren errautsetan. Joanes Urkixo

2 (izena izenondoekin)

Laudanoz, zikutaz eta **azido** askorbikoz osatutako nahasketa bitxi bat Gantz-azidoen adibide ezagunetariko bat **azido** azetikoa da, ozpinaren osagai nagusia. Iban Zaldua

Usketatxo bat honi, hamar gramo bromo hari, **azido** boriko apur bat horrako horri, eskukada bat buztin beste horri. Juan Garzia

-Hitzak argi eta garbi lerratzen zitzaizkion ezpainetan behera, banan-banan, eta antzu, **azido** borikodun soluziotan garbitu berriak balira bezala. Mirentxu Larrañaga

Bakterioei esker lortuak dira, hain zuzen honako hauek: geneen baitako gai ondoretasun-eramaile gisa **azido** desoxirribonukleiko (ADN) delakoak jokatzen zuen papera zehaztea. Juan Garzia

Azido fenikoz asetako haztegi batean jarritako bakteridia bat nintzen ni han. Josu Zabaleta

Azido fosforikoak berebiziko garrantzia zuen karbohidrato zahartuak berritzeko orduan. Juan Garzia

Pozez eta etsipenez betetako sasoia izan zen, kontrazeptibo lez cocacola erabiltzen genuen, **azido** karbonikoa espermizida zelakoan. Joseba Sarrionandia

Marmol Aire kanpaiak gutxi ziren; bakoitzak, testuaren aginduei jarraiki analisi sistematikoan buru-belarri, **azido** kloridriko eta amoniako isuri puska ez nolanahikoa lurrunarazten zuen aire zabalera, eta, hori zela eta, amonio klorurozko laino itxi zurixka batek harturik zegoen beti laboratorioa, eta, gai hura bertan idor-hondarturik, leihoetako beirak kristal txiki-txiki dirdaitsuz janzten ziren. Juan Garzia

Eztainua ale-xehatu beharra zegoen, gero **azido** klorhidrikoz erasotzea errazago izan zedin. Juan Garzia

Oxigeno-hornidura nahikoa ez bada, ariketa gogor bat egiten denean askotan gertatu ohi den bezala, beste prozesu bat izaten du glukogenoak: **azido** laktiko bihurtzen da, eta energia apur bat askatzen du. Irene Aldasoro

Onartzea krudela izan arren, egoera dagoenean egonda, litekeena duk Alargun Beltzaren ADNa **azido** nitriko upel batean egotea honezkero, landareentzako ongarri bihurtua. Harkaitz Cano

Halakorik ez zen laboratorioan: bai, ordea, amoniakorik eta **azido** nitrikorik. Juan Garzia

Nahaste ikaragarri bat gara: **azido** nukleikoak eta oroitzapenak, desirak eta proteinak ditugu osagai. Juan Garzia

Ikuspegi nutrizionaletik, berriz, ez dugu ahantzi behar **azido** oleiko eta linoleikoen iturri behinena bera dela, gainerakoen kaltetan. Edorta Agirre

Atzamarrak igurzten hasi zen **azido** oxalikoarekin. Anton Garikano

Hortik aurrera, **azido** pirubikoa destilatzen eta agurearen azukreaz espekulatzen eman nuen eguna. Juan Garzia

Azido sulfidrikoak buzker usaia du. Fernando Rey

Zink ale-xehekatuari aurrez uretan disolbaturiko **azido** sulfurikoz erasotzea. Juan Garzia

Gero 250ºC-ra berotzen genuen bisulfato horregaz **azido** tartarikozko nahaste bat, hala **azido** tartarikoa **azido** pirubiko bihurtuz deshidratatzen da eta destilatu. Juan Garzia

Halaxe zen, bai: **azido** urikoa, tanta-hezueriak joen borrero, tripazain-zurruteroen zigor eta harri-gaitzaren eragile sonatu horixe zuen sorburu. Juan Garzia

Ez dakigu zerk eragozten dien fosfato, oxalato eta **azido** urikoaren kristal mikroskopikoei elkarri eranstea eta harriak eratzea giltzurrun normalean. Irene Aldasoro

Galde iezaiozu karrera egin duen mediku bati zer den kolesterola eta **azido** urikoa, eta hark ere berehala esango dizu. Joan Mari Irigoien

Hemen borreroak ez du **azido** zianhidrikorik erabiltzen ez dio laidozko pikotako lepokoari eragiten ez daki aizkoraz pikatzen ez du gillotina askatzen ez dio 2.000 boltioko aulkiaren kisketari ematen. Koldo Izagirre

3 (hitz elkartuetan)

Nire DC-4-a, Mexico-Cityranzko bidean, une hartantxe gure buruen gainetik hega-ziztuan, itsas zabalaren gainean bihurkada egin eta zeru gorian murgilduz, **azido**-galda urdin batean urtzear balihoa bezalaxe. Joxe Austin Arrieta

Ehunka gramo batzuk gantz-**azido** lapurtuak nituen, barrikadaren beste aldeko nire lankideren batek parafinaren oxidaziotik neke handiz lortuak:[...]. Juan Garzia

4 ***anhidrido azido*** *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Anhidrido azidoa ur molekula bat edo gehiago gehitzean azido hidroxilikoa sortzen duen gaia da. ETC-entziklopedia

5 *arroka azido* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Pikor fineko **arroka azidoek** (edo feltsikoek) kolore arrosa, zuria edo marroi argia izaten dute; bitartekoek, gris berdaxka; mafikoek eta ultramafikoek, gris iluna edo beltza. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mineral basikoak, olibinoa edo piroxenoak esaterako, ez dira agertuko, **arroka azidoak** baitira. ETC-zientzia, zuzenbidea

6 *azido abietiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Azido abietikoa C19H29-CO2 formula duen molekula organiko bat da, egitura aldetik diterpenoa. Molekula anfipatikoa da. ETC-entziklopedia

7 *azido abszisiko* *(corpusean ez dago; ETCn **69** agerraldi)*

Azido abszisikoa edo ABA fitohormona landareen hormona garrantzitsu bat da, hazkuntza, latentzia eta estomen itxitura kontrolatzen dituena, besteak beste. ETC-entziklopedia

Hazien latentzia moztuz erne egiten ditu eta kimuen eta fruituen hazkuntza aktibatzen du besteak beste, **azido abszisikoaren** aurkako eragina du. ETC-entziklopedia

Azido abszisiko izeneko landareen hormonaren sintesian bitartekaria da. ETC-entziklopedia

Haren ikergaiak dira, besteak beste, **azido abszisikoarekiko** erantzun-mekanismoak eta horiek zer erlazio duten hormonek, ingurumenak eta mantenugaiek eragindako beste seinaleztatze-bidezidorrekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

8 *azido adipiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Azido adipiko, ftaliko, fosforiko edo sebazikoaren esterrekin plastifikaturiko PVCa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

9 *azido akriliko* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Azido akrilikoa: Isurkari koloregabea, usain sakorrekoa, uretan aise urtzen dena. Akroleina oxidatuz lortzen da. Bai **azido akrilikoa** eta bai haren eratorriak oso erraz polimerizatzen dira, eta horregatik erabiltzen dira pintura eta plastikoa egiteko. ETC-entziklopedia

Hortik abiatuta, gastrorresistentzia-propietateak dituzten zelulosa-deribatuak (zelulosa-azetoftalatoa) eta kopolimero akrilikoak (metakrilatoa / **azido akrilikoa**) garatu izan dira; gelatinarekin nahasita estaldura enterikoa eratzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

10 *azido arakidiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Azido arakidikoa garbikariak ekoizteko eta hainbat argazkingintza material egiteko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

11 *azido arakidoniko* *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi)*

Azido arakidonikoa (AA) edo azido eikosatetraenokoa Omega 6 koipe azidoak Omega 6 azido taldeko gantz-azido poliasegabea da. ETC-entziklopedia

Prozesu horren bidez, **azido arakidonikoa**, besteak beste, eratzen da, eta hori prostaglandinen eta tronboexanoen aitzindaria da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Tronbozitopeniak aztertzeko erabil daitezke, zenbait estimuluren aurrean (ADO, adrenalina, **azido arakidonikoa**, kolagenoa...) plaketek duten agregazio-gaitasuna neurtzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aminoazidoen eta **azido arakidonikoaren** analogoak eta deribatuak, katekolaminak (adrenalina eta noradrenalina), prostagladinak, prostaziklinak eta leukotrienoak barne. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mastozitoek ekoizten dituzten bitartekaririk garrantzitsuenak hauek dira: pikorretan pilatutako eta haietatik askatutako amina basoaktiboak eta proteasak, **azido arakidonikoaren** metabolismoan ekoizten eta jariatzen diren produktuak, eta zitokinak. ETC-zientzia, zuzenbidea

12 *azido artseniko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Azido artseniko. ETC-zientzia, zuzenbidea

13 *azido askorbiko*

Ez dute edarion izenik zabaldu, baina, esan dutenez, osagaien artean benzoato sodikoa eta **azido askorbikoa** (C bitamina) dituzte. Berria - Gaiak

Kritikaria ez zen sekula ere konturatu bera zela petaka horretatik edaten zuen bakarra, eta eskerrak, Andrescuk pozoi-dosi txiki batez osatzen baitzuen edukia (laudanoz, zikutaz eta **azido askorbikoz** osatutako nahasketa bitxi bat), konfiantzazko mediku batek emandako aholkuak zorrozki jarraituz. Iban Zaldua

14 *azido aspartiko* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Bide kimiko edo entzimatiko baten bitartez lor daiteke, L-fenilalanina (edo haren deribatu ester metiliko bat) eta **azido aspartiko** aminoazidoak elkartuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ondoren, fosfatoa hartzaile-domeinu elkartuaren barnean kokatutako **azido aspartiko** hondar batera transferitzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

DPPk **azido aspartiko** eta serina asko ditu, azken hori sarri askotan fosforilatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Glizina, alanina, **azido aspartiko** eta azido glutamikoa bezalako aminoazidoak eratu ziren esperimentu horretan. ETC-entziklopedia

15 *azido azetiko*

Beste batzuek, berriz, glizerina eta gantz-azido gantzak; gantz-azidoen adibide ezagunetariko bat **azido azetikoa** da, ozpinaren osagai nagusia. Irene Aldasoro

16 *azido azetiko glazial* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Azido azetiko puruenari **azido azetiko glazial** deritzo; izan ere, izozte-puntuaren inguruko hozte frakzionatuen bidez garbitzen da azido azetikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mozketak koloratzaile-soluzioan (% 0,1 luxol fast blue % 96 etanoletan, % 10 **azido azetiko glaziala** gehituz) murgildu gau osoan zehar 56ºC-tan mantenduz. ETC-zientzia, zuzenbidea

17 *azido azetilsaliziliko*

Mundu osoko botikarik ezagunenetarikoa da Bayer etxeak merkaturaturiko **azido azetilsalizilikoa**, Aspirina. Berria - Gaiak

8.000ko marka berreskuratu ez zuen arren, bezperako biharamuna bederen gainditu zuten gure indizeek, **azido azetilsalizilikotik** edan balute bezala. Berria - Ekonomia

18 *azido balproiko* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Azido balproikoa ("Depakine" izen komertziala Frantzia eta Espainian) sendagai antiepileptikoa da. Sodio erretenen blokeoa eta sistema gabergikoaren funtzionamendua bultzatzen ditu. ETC-entziklopedia

Sendagaia **azido balproikoa** da: Depakine du izen komertziala, eta epilepsiaren aurka erabiltzen da, baita nahasmendu bipolarrak tratatzeko ere. ETC-prentsa

Ikertzailearen arabera, nabarmentzekoa da ikerketak oso autismo mota jakina ikertu duela: haurdunaldian amak **azido balproikoa** hartu izanak eragindakoa. ETC-prentsa

Azido balproikoa da Depakine, eta iaz ozentzen hasi ziren albisteei esker jakin zuten hainbat emakumek zer ondorio izan ditzakeen haurdunaldian. ETC-prentsa

19 *azido barbiturikoa* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Azido barbiturikoa (C4H4O3N2). 2,4,6-trioxiipirimidina, barbiturato multzoen oinarrizko osagaia. Urearen ester malonikoa kontzentratuz ateratzen da. Sendagintzan, sorgarriak egiteko erabiltzen dira horren zenbait eratorri. ETC-entziklopedia

20 *azido-base oreka* *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Aurreko atalean, **azido-base orekaren** inguruko kalkulu zehatzak egin ditugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zain barnetik eskala handian eman beharreko bolumen handiko disoluzioak lau taldetan sailkatu daitezke: mantentzeko eta errehidratatzeko disoluzioak, **azido-base oreka** zuzentzeko disoluzioak, disoluzio koloidalak eta bestelako disoluzioak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Giltzurrunek, gernua ekoitziz, gorputzeko fluidoen **azido-base oreka** kontrolatzen dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Analisi osoa egin, entzima kardiakoak, egoera hidroelektrolitikoa eta **azido-base oreka** zehaztatu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arnas gutxiegitasuna dagoenean, arteria-gasometria garrantzitsua izango da **azido-base orekan** asaldurak detektatu eta tratatu ahal izateko, baina ez da paziente guztietan errutina moduan egiten. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretarako, **azido base oreken** kontzeptuak ere erabili ohi dira, horien alterazioak baitira alkalosiaren kausa nagusiak. ETC-entziklopedia

Eta zerikusia dute orobat zelulaz kanpoko isurkarien pHarekin, eta horrenbestez **azido-base orekan** eragina dute. ETC-entziklopedia

21 *azido bentzoiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Horien kide aromatikoei **azido bentzoiko** deritze, eta sistema dikarboxilikoak, berriz, azido alkanodioikoak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala ere, azido aromatiko sinpleenak (bentzenotik eratorritakoak) izen arrunta du, **azido bentzoiko** alegia, eta IUPACek hura erabiltzea gomendatzen duen kasu bakarra da. ETC-zientzia, zuzenbidea

22 *azido boriko*

[...] egiten genituen han, 14etatik 19ak arte: sartzean, laguntzaile batek bakoitzari prestaera bat agintzen zigun, eta gero zein bere txandan joaten ginen "despatxu"ra, non Caselli triku-ileak banatzen baitzizkigun lehengaiak, exotikoak zein domestikoak: marmol pusketatxo bat honi, hamar gramo bromo hari, **azido boriko** apur bat horrako horri, eskukada bat buztin beste horri. Juan Garzia

23 *azido butanodioiko* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Adibidez, **azido butanodioikoa** (sukzinikoa) anbarra destilatzean aurkitu zuten (latinez, succinium hitzak "anbar" esan nahi du), eta azido trans-2-butenodioikoa (fumarikoa) Fumaria landarean aurkitzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

24 *azido butanoiko* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Hala ere, **azido butanoiko** ugari dute eta janari ustel edo okada usain oso desatsegina darie. ETC-entziklopedia

Adibidez, **azido butanoikoak** eragiten du gazta mota askoren zapore bereizgarria, eta azido (E)-3-metil-2-hexenoikoa da giza izerdiaren usainaren arduraduna, 1991an aurkitu zutenez. ETC-zientzia, zuzenbidea

25 *azido butiriko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Azido butiriko izena eman zion, latinez "gurina" "butyrum" baita. 1861 urtean Louis Pasteurrek bakterio anaerobio hertsien hartzidura prozesua deskribatu zuen eta bide metaboliko honen azken produktua azido butirikoa da. ETC-entziklopedia

26 *azido desoxirribonukleiko* kromosomen osagai nagusia den azido nukleikoa.

Londresera itzulita, x izpiak erabili zituen azido **desoxirribonukleikoa** aztertzeko. Berria - Gaiak

Bakterioei esker lortuak dira, hain zuzen honako hauek: geneen baitako gai ondoretasun-eramaile gisa azido **desoxirribonukleiko** (ADN) delakoak jokatzen zuen papera zehaztea. Juan Garzia

Analisia egiteko, odol laginetik hartutako ADN (azido **desoxirribonukleikoa**) jartzen da plaka horren gainean, behar bezala markatuta. Berria - Gaiak

ADN azido **desoxirribonukleiko** zatien edo zelula normalen «bikoizketa sinpleak» egitea begi onez ikusten du Vatikanoak, baina ez klonazioa. Berria - Gaiak

27 *azido dodekanoiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Azido laurikoa edo **Azido dodekanoikoa** kate ertaineko gantz-azido ase bat da, CH3 (CH2) 10COOH formula duena. Hamabi karbono ditu (12: 0). ETC-entziklopedia

28 *azido erretinoiko* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Azido erretinoikoa A bitaminaren metabolito bat da, hazteko eta garatzeko beharrezkoa den A bitaminaren funtzioetan esku hartzen duena. ETC-entziklopedia

29 *azido erribonukleiko* proteinen sintesian parte hartzen duen eta informazio genetikoa bideratzen duen azido nukleikoa.

Izan ere, molekula horietatik erribosa sor daiteke, azido **erribonukleikoaren** (ARN) eta azido desoxirribonukleikoaren (ADN) oinarria. Berria - Gaiak

30 *azido errizinoleiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Dauzkan koipe azido kateen %90a **azido errizinoleikotik** datorzkio; bere beste osagai narbarmenetako batzuk azido oleikoa eta azido linoleikoa dira. ETC-entziklopedia

31 *azido esteariko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Estearina edo Triestearina hiru **azido esteariko** (18: 0) eta glizerina batek osatzen duten triglizerido bat da. C57H110O6 formula du. ETC-entziklopedia

Ezaugarri egokienak eskaintzen dituzten nanopartikula nahastea **azido estearikoa**, Epikuron 200 eta taurodesoxikolatoz osaturik daudenak direnez, nahaste hau erabili genuen saio hau egiteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

32 *azido etanodioiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Azido oxaliko edo **azido etanodioiko** (H2C2O4) azido organiko dikarboxiliko bakunena da. Carl Wilhelm Scheele Scheelek aurkitu zuen 1776an, azukrearen oxidazioa aztertzen ari zela. ETC-entziklopedia

Azido etanodioikoetan (oxalikoetan) eta propanodioikoetan (malonikoetan), lehenengo pKa-a jaistea eragiten du bigarren karboxi taldeak lehenean duen indukzio-eragin elektroi-kentzaileak. ETC-zientzia, zuzenbidea

33 *azido etilendiaminotetraazetiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Azido etilendiaminotetraazetiko konposatua, "EDTA" akronimoaz ezagutzen den konplexatzaile kimiko bat da. Konposatu hau, konplexatzaile izenak adierazten duen bezala, ioi metalikoekin koordinazio konplexuak eratzeko gai da. ETC-entziklopedia

Ahalmen handitze horren edo sinergiaren adibide ohikoena litzateke konbinatzea **azido etilendiaminotetraazetikoa** edo haren gatzak (EDTA) bentzalkonio kloruroarekin, fenolarekin, parabenoekin edo antzeko antimikrobiarrekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

34 *azido fitiko* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Landarei dagokionez, inositolaren hexafosfatoak, **azido fitikoak** edo bere gatzak, fitatatoak, fitato gordailutzat dihardute hazietan, intxaur eta frijoletan, adibidez. ETC-entziklopedia

Fitasa fungika bezalako entzima batzuk ogiaren **azido fitiko** kantitatea gutxitzeko erabiltzen dira. ETC-entziklopedia

Gereziak bitamina, mineral eta abar ugariren artean minbizigaiak indargabetzen dituen azido elagikoa du, eta labore integralek -oloa, arroza, garia, zekaleaà- antzeko eragina duten **azido fitiko** eta lignanoak. ETC-prentsa

Zuntz disolbaezinek, ligninak edo **azido fitikoak**, adibidez, katioi dibalenteak finkatzeko gaitasuna dute (Ca, Mg, Fe, Cu eta Zn). ETC-zientzia, zuzenbidea

Elikagarri-aurkakoen artean **azido fitikoa** dago, katioi bibalente eta tribalente batzuei (kaltzioari batez ere, baita kobre, burdina, magnesio eta zinkari ere) lotuta, bere xurgatzea ekiditen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

35 *azido flufenamiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

3.5 irudian, **azido flufenamikoaren** I eta II forma polimorfikoen urtze-prozesuaren erpin endotermikoak ageri dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

36 *azido fluorhidriko*

Nire lanaz lehenbiziko egunetik maitemindu nintzen, nahiz eta, fase horretan, haitz-laginen analisi kuantitatiboak egiten baino ez jardun denbora guztian: **azido fluorhidrikoz** eraso, horra burdinarekin amoniakoa, horra nikelarekin (zeinen gutxi!: sedimentu poxi bat, arrosakolorea) dimetilgloxima, horra magnesioarekin fosfatoa, beti berdin, egun santu guztietan: berez, ez zen oso kilikagarria. Juan Garzia

37 *azido foliko*

Hiru edo bost urte barru, nolanahi ere, urre kolorekoa izeneko arroza merkaturatuko dutela iragarri zuen, A eta E bitamina ugari eta **azido folikoa** bere baitan dituena. Berria - Gaiak

38 *azido foliniko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Arraroa izanagatik bitamina hidrodisolbagarrien taldean, azido folikoa gibelean metatzen da, poliglutamato eran edo koentzima aktibo bihurtuta: **azido folinikoa** (5-metiltetrahidrofolikoa). ETC-zientzia, zuzenbidea

Azido folinikoa edo leukovorina, oro har kaltzio folinato gisa hartua, kimioterapian erabiltzen den adjubante bat da, metotrexatoarekin hartzen dutena. 5-fluorouraziloko agente kimioterapeutikoarekin batera ere erabiltzen dute. ETC-entziklopedia

39 *azido formiko* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Txindurriak lumadian sartu, eta **azido formikoa** askatuko dute. ETC-prentsa

Hidrogeno-zubiak eratzen direlako ebidentzia garbiak bilatzen jarriz gero, honako hauek lortuko ditugu: ioia agertzea; gas-fasean **azido formiko** dimeroa eratzea, eta halako

beste zenbait egitura ez-ohiko agertzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adibidez, glukosa lau HIO4 baliokiderekin tratatuz gero, bost **azido formiko** baliokide eta fomaldehido baliokide bat sortzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Formil zianuroak urarekin erreakzionatzen du **azido formikoa** eta hidrogeno zianuroa sortuaz. ETC-entziklopedia

Horietako bat metanola da, hau kimikoki gibelean formaldehido eta **azido formiko** bihurtzen da metabolismoaren ondorioz. ETC-entziklopedia

40 *azido fosfatidiko* *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

Azido fosfatidikoa fosfoglizeridoen oinarria osatzen duen lipidoa da. ETC-entziklopedia

Azido fosfatidikoa dute oinarrian. Molekula hau bi gantz azidok, glizerol batek eta fosfato talde batek osatzen dute. ETC-entziklopedia

Diazilglizerola (DAG) **Azido fosfatidikoa** Fosfatidilkolina Fosfatidiletanolamina Galaktolipidoak triazilglizerolen eta glizerolipido polarren egiturazko ezaugarriak. ETC-zientzia, zuzenbidea

41 *azido fosforiko*

Erregaiz eta **azido fosforikoz** betetako itsasontzi bat hondoratu da, eta larrialdi plana prestatu dute badaezpada ere Franziak, Erresuma Batuak, Belgikak eta Irlandak. Berria - Gaiak

Beti ere Doktor Kerrn-i jarraiki, Commendatorearen interpretazio lonbardoan noski, **azido fosforikoak** berebiziko garrantzia zuen karbohidrato zahartuak berritzeko orduan, eta horretaraino ez zegoen aitzakiarik jartzerik. Juan Garzia

42 *azido ftaliko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Azido ftaliko C6H4 (CO2H) 2 formula duen azido dikarboxiliko aromatikoa da. Naftalenoaren eta bentzinaren oxidazio katalitikoz eratzen da. ETC-entziklopedia

43 *azido fumariko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ehunei kolorea emateko erabiltzen da eta baita elikagaien industrian garrantzitsuak diren beste zenbait azido (azido malikoa, **azido fumarikoa**, azido tartarikoa eta azido laktikoa, batez ere) lortzeko ere. ETC-entziklopedia

44 *azido galakturoniko* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Azido galakturonikoa C6H10O7 formula duen azido organikoa da. ETC-entziklopedia

Eskuinean, **azido galakturoniko** hondarren hidroxilo-oxigenoekin koordinazio-konplexua eratzen duen kaltzioa handituta ageri da. ETC-zientzia, zuzenbidea

45 *azido gastriko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Helicobacter pilory izeneko bakterioak, urdaileko urinak (**azido gastrikoak**) eta janariak digeritzen laguntzen duen pepsina izeneko entzimak parte hartzen dute ultzera bat sortzeko mekanismoan. ETC-prentsa

Horrek **azido gastrikoaren** jariapena areagotzen du, eta hestegorri eta urdailean sor daitezkeen zauriak oker ditzake. ETC-prentsa

Urdailean **azido gastrikoen** jariaketa gutxitzen dute eta mukosa gastrikoaren garapena bultzatzen dute. ETC-entziklopedia

46 *azido glukoniko* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Azido glukonikoa C6H12O7 formula duen azido organikoa da. ETC-entziklopedia

Glukosa oxidatzean, adibidez, **azido glukonikoa** bakarrik sor dezakete, galaktosarekin azido galaktonikoa bakarrik, arabinosarekin azido arabonikoa, eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

47 *azido glukuroniko* *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

Azido glukuronikoa C6H10O7 formula duen azido organikoa da. ETC-entziklopedia

Methanosarcina generoko espezieek, beste arkeo metanogenoek bezala, glukosaz, **azido glukuronikoz**, galaktosaminaz eta azetatoz eginiko zelula-horma lodiak dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bide horri jarraituz, glukosatik hasita **azido glukuronikoa** eratzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gibelak plasmako bilirrubina hartzen du (ez-zuzena edo ez-konbinatua), **azido glukuronikoarekin** konbinatzen du (zuzena edo konbinatua da) eta behazunarekin batera kanporatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

II. faseko erreakzioek (substratu endogenoen, hala nola sulfatoaren, azetatoaren, **azido glukuronikoaren**, glutationaren eta glizinaren bidezko elkarketek) are gehiago handitzen dute ur-disolbagarritasuna, eta, hortaz, kanporatzea errazten dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Adibidez, glukuronoarabinoxilanoa **azido glukuroniko** unitatez apaindutako arabinoxilano bat da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hemo taldea, bilirrubinara moduan degradatzen da eta gibelera garraiatzen da porta sistemaren bidez, bertan **azido glukuronikoarekin** konjugatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

48 *azido glutamiko* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Balerianaren erauzkinak **azido glutamiko** deskarboxilasaren eragina estimulatzen du baita ere. ETC-entziklopedia

A1 kromosoman dauden **Azido glutamiko** edo glutamato hartzaileentzat kodifikatzen duen "GRIA1" genea. ETC-entziklopedia

Beste botika batzuek mugimenduarekin lotura duten buruko beste substantzia batzuengan eragiten dute: **azido glutamikoa**, kanabinoideak, denosina... ETC-prentsa

Analisiek bere osagai onuragarriak berresten dituzte: azukreak (glukosa, fruktosa, galaktosa...), aminoazidoak (glutamina eta **azido glutamikoa**, citrulina...), azido organikoak (malikoa, zitrikoa...), mineralak (kaltzioa, potasioa, zinka, manganesoa, magnesioa, fosforoa...) eta abar. ETC-prentsa

S hemoglobinan, A hemoglobinako **azido glutamiko** aminoazido azidoaren ordez balina aminoazido neutroa agertzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ezkerrean sekuentzia normala; eskuinean, berriz hemoglobina faltziformearen sekuentzia eznormala: balinak ordeztu du **azido glutamiko** bat. ETC-literatura, saiakera

Izotzgune-eragile horiek, normalean, proteina oso hidrofilikoak dira, tamaina txikikoak, **azido glutamiko** edo glutamina aminoazidotan bereziki aberatsak. ETC-zientzia, zuzenbidea

49 *azido hexadekanoiko* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Azido hexadekanoikoa (palmitikoa), tetradekanoikoa (miristikoa) eta dodekanoikoa (laurikoa) duten gantz aseak aterosklerosia (arterien gogortzea) eragiten duten elikadura-faktoreak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

50 *azido hexanodioiko* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Azido hexanodioikoa (adipikoa) eta azido 1,4-bentzenodikarboxilikoa (tereftalikoa) dira eskala handiko ekoizpen kimikoa duten bi azido dikarboxiliko. ETC-zientzia, zuzenbidea

51 *azido hialuroniko* *(corpusean ez dago; ETCn **73** agerraldi)*

Azido hialuronikoa edo AH glikosaminglukano unitatez egindako polisakaridoa da. ETC-entziklopedia

Pro-xylane, kolagenoa edo **azido hialuronikoa** bezalako hitzak jariatzen dizkigute, soluzio abangoardistak eta super serumak, betegarri biologikoak, zimurren konponketa eta elastizitatearen berregituratzea bezalako kontzeptuak zaparradan botatzen. ETC-prentsa

Horren ostean, **azido hialuronikoa**, glukosaminoglikanoa eta kolagenoaren eta elastinaren (gure azalaren elementu SOLUZIOAK garrantzitsuenak dira) produkzioa eta birsorkuntza potentzia dezaketen beste substantzia batzuekin azal leuna lor dezakegu. ETC-prentsa

Hau da, substantzien infiltrazioaren bitartez - **azido hialuronikoa**, bitaminak eta abar- aurpegiaren gardentasuna berreskuratzea lortzen du, norberaren fisionomia aldatu barik, noski. ETC-prentsa

Bateko, peptidoak eta erretinola, eta fribroziklamidea, eta glikoproteina omen den fibrilina, eta **azido hialuronikoa**, glikolikoa, ursolikoa... ETC-prentsa

Kontraesan horretan pentsatzen jartzeak **azido hialuronikoak** eta Q10 koentzimak baino gehiago gaztetu nau. ETC-prentsa

Ez dakit zenbat aldiz esan dudan ez duela merezi **azido hialuronikotan** dirua gastatzea, denborari ezin zaiola irabazi. ETC-prentsa

Hialuronidasa entzimak **azido hialuronikoa** apurtzen du; **azido hialuronikoa** polisakarido bat da eta ehunak lotzeko zementu gisa erabiltzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Glukosatik hasita, **azido hialuronikoa** eratzen da, eta karbohidrato deribatu hori ehun konektiboaren osagaia da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ehun konektiboko glukosaminoglukano nagusiak kondroitin sulfatoa, keratan sulfatoa, heparin sulfatoa eta **azido hialuronikoa** dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

52 *azido hidrofluoriko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Nahiz eta elementu oso inertea izan, halogenoekin erreakzionatzen du eta alkaliak disolbatzen ditu, baina azido gehienek (azido nitrikoaren eta **azido hidrofluorikoaren** zenbait konbinazio hipererreaktibok salbu) ez diote eragiten. ETC-entziklopedia

53 *azido hidroklorhidriko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Azido hidroklorhidrikoaren eta azido sulfurikoaren lurrun kaltegarriz betea zegoen, eta arropa jateko eta azala erretzeko ahalmena zuten lurrun horiek. ETC-literatura, saiakera

54 *azido hidrokloriko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Karezko soluzio bati analizatzaileak **azido hidroklorikoan** alkalia gaineratzea bezala litzateke; azidoak berehala karea uzten du eta alkaliarekin batzen da, eta hura hondoan geratzen da. ETC-literatura, saiakera

Hala ere, **azido hidroklorikoak** ioiak orekatik kendu, eta AuCl4? ioiak edo azido kloroaurikoa sortzen ditu. ETC-entziklopedia

55 *azido hidroxikarboxiliko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Horixe gertatzen da molekulan lehentasuna duen talde funtzional bat dagoenean, **azido hidroxikarboxilikoetan** gertatzen den legez. ETC-zientzia, zuzenbidea

56 *azido hipobromoso* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Azido hipobromosoa (HBrO) azido oso ahul eta ezegonkor bat da, zeinetan bromoak 1 oxidazio-zenbakiarekin jokatzen duen. ETC-entziklopedia

Kalkula ezazu **azido hipobromoso** (HBrO) disoluzio baten kontzentrazioa, pH=4,8 dela jakinda (Ka=2,1?10-9). ETC-zientzia, zuzenbidea

57 *azido hipokloroso* *(corpusean ez dago; ETCn **28** agerraldi)*

Azido hipoklorosoa (HClO) hipoklorito ioi batez eta hidroi batez osatuta dagoen azido ahula da. Kloroa uretan disolbatzean sortzen da, eta erreakzio horretan bere burua ere partzialki disoziatzen du. **Azido hipoklorosoa** eta hipoklorito ioia oxidatzaileak dira eta kloro disoluzioen lehen mailako desinfekzio agenteak ere badira. ETC-entziklopedia

Mieloperoxidasa fagozitosi-entzimak **azido hipoklorosoa** eratzen du (HOCl-a), kloro ioietatik eta H2O2-tik abiatuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste alde batetik, tamaina handiko eta ureduki handiagoa duten kristaletan, kloro nitratoak hidrolisia pairatzen du, **azido hipoklorosoa** formatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

58 *azido hiposulfuroso* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Azido hiposulfurosoa (H2SO2) -azido sulfoxiliko edo sulfuro dihidroxido gisa ere ezaguna- hiposulfito ioi batez eta bi hidroiz osatuta dagoen konposatu inorganikoa da, zehazki, oxoazidoa. ETC-entziklopedia

59 *azido isozianiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Azido isozianiko HNCO formula duen konposatu organikoa da. 1830ean Liebigek eta Wöhlerrek topatu zuten. ETC-entziklopedia

60 *azido kafeiko* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Adibidez, **azido kafeikoa** eta azido ferulikoa (ikus 13.8A irudia) nahiko ugariak dira lurzoruan, eta laborategiko esperimentuetan ikusi izan da landare askoren hozitzea eta hazkundea inhibitzen dituztela. ETC-zientzia, zuzenbidea

Garagardoak hainbat azido fenoliko ditu, hala nola azido 4-hidroxifenilazetiko, azido baniliko, **azido kafeiko**, azido siringiko, azido p-kumariko, azido feruliko eta azido sinapikoa. ETC-entziklopedia

61 *azido kapriko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Azido kaprikoa edo azido dekanoikoa kate ertaineko gantz-azido ase bat da, CH3 (CH2) 8COOH formula duena. Hamar karbono ditu (10: 0). ETC-entziklopedia

62 *azido karboniko*

Pozez eta etsipenez betetako sasoia izan zen, kontrazeptibo lez cocacola erabiltzen genuen, **azido karbonikoa** espermizida zelakoan, baina cocacolak peritonitis eta gas enbolismo larriak eragiten zituen...'. Joseba Sarrionandia

63 *azido karboxiliko* *(corpusean ez dago; ETCn **77** agerraldi)*

Azido karboxiliko karboxilo talde bat edo gehiago duen azido organiko saila da. ETC-entziklopedia

Abiadura lortzeko, erreakzionatu ez duten **azido karboxiliko** taldeak titula daitezke poliesterifikazio-erreakzioan zehar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lotura horiek apurtuz degradatzen da polimeroa, eta bi **azido karboxiliko** sortzen dira ondorioz. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beste muturra, **azido karboxiliko** funtzio taldea, polarra izanik zati hidrofilikoa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

64 *azido karminiko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Kukurutx-karmin izenarekin ezagutzen da **azido karminikoa** edo E120 gehigarria. ETC-entziklopedia

Azido karminikoaren aluminio-kaltzio laka bat da kotxinila-karmina. ETC-zientzia, zuzenbidea

65 *azido klorhidriko*

Kristaltze-prozesua astitsua zenez, ontzi asko behar ziren, eta, **azido klorhidrikoak** metal guztiei erasotzen dienez, ontziok beirazkoak edo zeramikazkoak izan behar zuten. Juan Garzia

Nolanahi ere, **azido klorhidrikoak** ez du eginkizun handirik digestioaren hasierako faseetan; fase horietan, pepsinak eta urdailaren barne-estaldurako zelulek sorturiko beste entzima batzuek hartzen dute parte. Irene Aldasoro

Beste isuri bat izan zen atzo Electroquimica de Hernani enpresan, eta langile bat erre egin zen **azido klorhidrikoarekin**. Berria - Euskal Herria

Herenegun goizaldean gertatu zen isuria, **azido klorhidriko** biltegi batean izan zen matxuraren ondorioz. Berria - Euskal Herria

66 *azido kloriko* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Azido klorikoa (HClO3) kloroaren oxoazido bat da eta klorato gatzen aitzindari formala. Azido sendo bat da azidotasun konstantea -1 ingurukoa- duena eta oxidatzailea ere bada. ETC-entziklopedia

Idatz itzazu azido hauei dagozkien base konjugatuen formulak: (a) azido sulfurosoa, H2SO3; (b) **azido klorikoa**, HClO3; (c) hidrogeno sulfuroa, H2S; (d) dimetiloxonioa, (CH3) 2OH; (e) hidrogeno sulfatoa, HSO4- ETC-zientzia, zuzenbidea

67 *azido kloroso* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Azido klorosoa (HClO2) klorito ioi batez eta hidroi batez osatuta dagoen konposatu inorganikoa da. Azido ahul bat da. ETC-entziklopedia

68 *azido koipetsu* *(corpusean ez dago; ETCn **49** agerraldi)*

Zientzialariek nabarmendu dutenez, arrainaren koipeak dituen **azido koipetsuek** burmuineko hantura murrizten dute. ETC-prentsa

Fruitu gorri gehienen gisara osasuntsua da oso, bitaminatik ugari du, eta beste osagai ongarri eta hobarien artean fruituetan aurkitzen zailak diren **azido koipetsuak** ditu. ETC-prentsa

Azido koipetsu libreak, hauek garbigarri, xanpu edo kosmetikoak fabrikatzeko erabil daitezke. ETC-entziklopedia

Azido koipetsuetan talde karboxiloaren alboko hidrogenoa da ordezkatzen errazena. ETC-entziklopedia

69 *azido kromogliziko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Azido kromoglizikoa konposatu kimikoa da, medikuntzan antihistaminiko gisa erabiltzen dena alergiak tratatzeko. Izan ere, mastozitoen degranulazioa eta bitartekarien askapena inhibitzen du, alegia, histamina askatzea ekiditen du. Kromoglikato disodiko eran merkaturatu ohi da. ETC-entziklopedia

70 azido laktiko esne minduan eta landare askotan aurkitzen den azidoa.

Oxigeno-hornidura nahikoa ez bada, ariketa gogor bat egiten denean askotan gertatu ohi den bezala, beste prozesu bat izaten du glukogenoak: azido **laktiko** bihurtzen da, eta energia apur bat askatzen du. Irene Aldasoro

Lasterketa luze baten lehenengo faseetan, oso mingarria izan daiteke muskuluetan pilaturiko azido **laktikoa**. Irene Aldasoro

Azido **laktikoak** nekatutako giharrak suspertzen laguntzen du. Berria - Gaiak

Odoleko azido **laktikoa** neurtuta, emakumeak muskulu-uzkurdurarik izango duen jakin daiteke. Berria - Gaiak

71 *azido lauriko* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Azido laurikoa edo Azido dodekanoikoa kate ertaineko gantz-azido ase bat da, CH3 (CH2) 10COOH formula duena. Hamabi karbono ditu (12: 0). ETC-entziklopedia

Glizerido erdisintetikoak ere erabiltzen dira, hau da, C12-C18 karbonoko gantz-azido aseekin (nagusiki, **azido laurikoarekin** eta estearikoarekin) esterifikatutako glizerina. ETC-zientzia, zuzenbidea

Sorbitanaren esterrak lortzeko, sorbitanaren alkohol talde bat edo batzuk **azido laurikoarekin** , oleikoarekin, palmitikoaren edo estearikoarekin esterifikatu behar d (ir) a. ETC-zientzia, zuzenbidea

72 *azido linoleiko* *(corpusean ez dago; ETCn **23** agerraldi)*

Azido linoleiko (azido oktadekadienoiko); C17H31COOH; liho-olioan agertzen dena. ETC-entziklopedia

Arrain urdinetan bereziki nabarmentzen dira gantz-azido oleikoa, **azido linoleikoa** (funtsezkoa, organismoak ezin baitu sintetizatu eta, beraz, elikaduraren bitartez baino ez baitu lortzen) eta omega-3 izenekoa. ETC-entziklopedia

Koipe gutxi ditu, baina koipe horien artean gaixotasun kardiobaskularretatik babesten gaituzten **azido linoleikoa** eta soia lezitina ditu. ETC-prentsa

Helduek hartutako energiaren % 2-3 **azido linoleiko gisa** kontsumitu behar dute eta azido a-linolenikoaren beharrizana oso ondo ezarrita ez badago ere, energia osoaren % 1 inguru izatea gomendatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bestalde, EN 14214 arautegiak ere **azido linoleikoen** metil ester eta azido koipetsu asegabeak (4 lotura bikoitza edo gehiago) dituzten konposatuen edukiera maximoa mugatzen du % 12 eta % 1 p: p, hurrenez hurren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konjugatu horien biosintesia landarearen araberakoa da, azido linoleniko (18: 3) edo **azido linoleiko** (18: 2) gantz-azidoen iturria zein den; horiek, ondoren, aminoazido batekin uztartzen dira intsektuaren hestean. ETC-zientzia, zuzenbidea

73 *azido linoleniko* *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Azido linoleniko edo Azido oktadekatrienoikoa kate luzeko gantz-azido poliasegabe bat da, C18H302O2 formula duena. ETC-entziklopedia

Ezin direnak eratu gantz-azido esentzialak dira eta, ugaztunei dagokienez, azido linoleikoa eta **azido linolenikoa** dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konjugatu horien biosintesia landarearen araberakoa da, **azido linoleniko** (18: 3) edo azido linoleiko (18: 2) gantz-azidoen iturria zein den; horiek, ondoren, aminoazido batekin uztartzen dira intsektuaren hestean. ETC-zientzia, zuzenbidea

74 *azido lisergiko* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

1943an Albert Hofmann kimikari suitzarrak, ez si eta ez no, **azido lisergikoaren** dietilamina edo LSD-25 aurkitu zuen. ETC-prentsa

Albert Hofmann kimikari suitzarrak esana duenez, kasualitatez asmatu zuen **azido lisergikoaren** formula, 1943an. ETC-prentsa

Azaroaren 16an, Albert Hofmann suitzar kimikari kontserbadoreak **azido lisergiko** dietilamida sintetizatzea lortu zuen lehenengoz, Sandoz laborategietan. ETC-prentsa

Dietilamida **azido lisergiko** sintetikoa (LSD) da ezagutzen diren haluzinogeno gogorrenetako bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

75 *azido lisergikoaren dietilamida* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

LSD ("Lysergic acid diethylamide"ren akronimoa), LSD-25, lisergida edo **azido lisergikoaren dietilamida** droga psikodeliko ia-sintetikoa da, ergolina familiakoa. Kontzientziaren egoerak eraldatzen ditu, esperientzia mistikoarekin nahiz eskizofreniarekin parekatu izan direnak. ETC-entziklopedia

LSD (**azido lisergikoaren dietilamida**) drogak elefanteengan duen eragina ikertu nahi zuten psikiatra haiek. ETC-zientzia, zuzenbidea

76 *azido maleiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Azido maleiko (HO2C-CH=CH-CO2H) kristal handietan ageri den kimika gaia da, 130°C-tan urtzen dena; uretan, alkoholetan eta azetonan urtzen da eta ahogozo txarrekoa da. ETC-entziklopedia

77 *azido maliko* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Azido maliko (HO2CCH2CHOHCO2H) landare eta fruitu ugaritan -sagar berdeetan, batik bat- izaten den bi azidodun alkohola da. Landareen eta animalien zelulen metabolismoan parte hartzen du. ETC-entziklopedia

Gozotasuna azukreei esker lortzen da; garraztasuna sagarrak dituen **azido maliko** , kiniko eta zitrikoetatik, eta mingostasuna, berriz, osagai fanoliko edo polifanolikoetatik. ETC-prentsa

Kontrol horietan honako faktoreak kontuan hartzen dira: mahatsaren pisua, alkohol gradu posiblea, azidotasun tartikoa, pHa, **azido malikoa** , potasioa, polifenolak eta intentsitate koloratzailea. ETC-prentsa

Beste era batera esanda, sagar berde indartsua gogorarazten digun **azido malikoa** esne arina gogoratuko digun azido laktiko bihurtuko da. ETC-prentsa

Batzuek izotzen ondoren biltzen dituzte, eta beste batzuek, geuk tarteko, usteltzen hasi denean jaten; fruituaren **azido malikoa** hartzitu eta alkohola bihurtzen hasi eta azukreak gora egin duenean. ETC-prentsa

Esan daiteke sagar mota guztietan azukre kontzentrazioak antzekoak direla, baina **azido malikoaren** kontzentrazioaren edo polifenolaren arabera nabarmentzen da sagardoaren izaera azidoa edo mikatza. ETC-prentsa

78 *azido maloniko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Azido batzuk halaber, izen arruntak izango dituzte (azido formiko, azido azetiko, **azido maloniko** , azido sukziniko...). ETC-entziklopedia

79 *azido mefenamiko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Azido mefenamikoari gertatzen zaio hori etanol-ur nahasteetan (3.18 irudia), eta azido p-hidroxibentzoikoaren deribatuei, ur-propilenglikol nahasteetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

80 *azido metakriliko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Azido metakriliko (MAA) isurkari koloregabea da, pozoitsua, 15 °C-tan urtzen dena H2C: C (CH3) COOH. Uretan, alkoholean, eterrean eta disolbatzaile organiko gehienetan urgarria, sukoia eta polimeroak aise sortzen ditu. ETC-entziklopedia

81 *azido metanoiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Azido metanoiko edo azido formikoa (bere izena inurri txingurrietatik dator, "formica" latinez) karbono atomo bakarreko konposatu organikoa da eta beraz, azido organiko guztietan sinpleena. Konposatu honek karboxilo talde bat du, molekulari ezaugarri azidoa ematen diona. ETC-entziklopedia

82 *azido miristiko* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Azido miristikoa edo Azido tetradekanoikoa kate ertaineko gantz-azido ase bat da, CH3 (CH2) 12COOH formula duena. Hamalau karbono ditu (14: 0). ETC-entziklopedia

83 *azido miristoleiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Azido miristoleikoa edo Azido 9-tetradezenoikoa kate luzeko gantz-azido asegabe bat da, C14H26O2 formula duena. ETC-entziklopedia

84 *azido muriatiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Bere ikerketa kimikoek interes zientifiko oso handia izan zuten, batez ere fosforoaz, **azido muriatiko** oxigenatuaz, sosaren erauzketaz, xaboiaren ekoizpenaz eta gatz delikueszenteen kristalizazioaz egindakoak. Artilleriarako ere ekarpen garrantzitsuak egin zituen. ETC-entziklopedia

85 *azido nitriko*

Onartzea krudela izan arren, egoera dagoenean egonda, litekeena duk Alargun Beltzaren ADNa **azido nitriko** upel batean egotea honezkero, landareentzako ongarri bihurtua. Harkaitz Cano

Halakorik ez zen laboratorioan: bai, ordea, amoniakorik eta **azido nitrikorik** . Juan Garzia

Fertiberia enpresak bestelako produktuak egiteko osagai moduan erabiltzen diren **azido nitriko** , nitrato kaltzio-amoniokoa eta nitrosulfato amoniokoa egiten ditu. Berria - Euskal Herria

86 *azido nitroso* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Azido nitrosoa HNO2 formula duen konposatu kimikoa da. ETC-entziklopedia

Bentzenamina primarioei (anilinei), aldiz, **azido nitroso** hotzarekin erreakzionaraztean, diazotizazio deritzon erreakzio baten bidez, arenadiazonio-gatz nahiko egonkorrak lortzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Nitrogenoaren oxiazido ugarien artean, hiru dira atmosferan presente egoten direnak: **azido nitrosoa** (HONO), azido nitrikoa (HNO3) eta azido peroxinitrikoa (HO2NO2). ETC-zientzia, zuzenbidea

87 *azido nukleiko*

Bestalde, sekuentziaren kalitateari dagokionez, lehengo errore-tasa 10.000 baseko akats batekoa zen (baseak **azido nukleikoaren** letrak dira). Berria - Gaiak

Nahaste ikaragarri bat gara: **azido nukleikoak** eta oroitzapenak, desirak eta proteinak ditugu osagai. Juan Garzia

88 *azido oleiko*

Ikuspegi nutrizionaletik, berriz, ez dugu ahantzi behar **azido oleiko** eta linoleikoen iturri behinena bera dela, gainerakoen kaltetan; kolesterol "gaiztoa" suntsitzen du bestelako olioek baino areago, eta asetasun sentsazioa eragiten du jatunarengan. Edorta Agirre

89 *azido ortofosforiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Orto: matematikan ari baldin bagara, aurrizki horren esanahia zuzena, elkarzuta izan daiteke: kimikan berriz, batzuetan substantzia batek duen hidrogeno/oxigeno kantitatea azal dezake (**azido ortofosforikoa**...). ETC-prentsa

90 *azido oxaliko*

Klara Postelberg, erabat suminduta, leihoaren eta kopiagailuaren arteko konketara abiatu zen, eta atzamarrak igurzten hasi zen **azido oxalikoarekin**.

91 *azido oxaloazetiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hala, **azido oxaloazetikoa** birsortzen da, eta, erreakzio akoplatu batean, adenosina trifosfato (ATP) molekula bat sortzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

92 *azido palmitiko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Tripalmitina hiru **azido palmitiko** (16: 0) eta glizerina batek osatzen duten triglizerido bat da. C45H86O6 formula du. ETC-entziklopedia

93 *azido palmitoleiko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Azido palmitoleikoa edo Azido delta-9-cis-hexadezenoikoa kate luzeko gantz-azido asegabe bat da, C16H30O2 formula duena. Gizakien gantz ehunean dauden triglizeridoen ohiko osagaia da, bereziki ugaria gibelean. ETC-entziklopedia

Azido palmitoleiko dosi altuak ditu. Macadamia olioarekin, gainera, azalarentzako krema hidratatzaileak, xaboiak eta masajerako olioak egiten dira. ETC-entziklopedia

94 *azido pantoteniko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

B5 bitamina, **azido pantoteniko** izenez ezagutua, A koentzimaren sorreran parte hartzen duena. ETC-entziklopedia

B5 bitamina edo **azido pantotenikoa**. Funtzioak: prozesu metabolikoetan garrantzi handia du. ETC-prentsa

95 *azido perfluorooktanoiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Azido perfluorooktanoikoa (PFOA), C8 izenez ere ezagutzen dena, mundu osoan prozesu kimikoetan tentsoaktibo moduan eta lehengai gisa erabiltzen den azido karboxiliko perfluoratua da. ETC-entziklopedia

Polimero bat da, eta horrek osagai bat du: **azido perfluorooktanoikoa** (PFOA). ETC-prentsa

96 *azido permanganiko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Azido permanganikoa (HMnO4) edo stock nomenklaturan manganiko (VII) azidoa lau oxigeno atomo, manganeso atomo bat eta hidrogenozko beste batez osatuta dagoen konposatu inorganikoa da. ETC-entziklopedia

Azido permanganikoa prestatzeko modurik ohikoena azido sulfurikozko disoluzio bat prestatzea da, zeinaren solutua bario permanganatoa den. ETC-zientzia, zuzenbidea

97 *azido pikriko*

Udan edo udazkenaren hasieran, lorategietan, eguzkiak egosiriko egunkari puskak aurkitu daitezke, lehorrak eta hauskorrak, hosto hilak bezalakoxeak, hain horituak ezen pentsa litekeen **azido pikrikotan** egonak direla. Monika Etxebarria

98 *azido pipemidiko* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Azido pipemidiko eta oxolinikoa dira, gaur egun asko erabiltzen ez direnak. ETC-entziklopedia

99 *azido pirubiko* azido koloregabea, metabolismoan garrantzi handia duena.

Hortik aurrera, **azido pirubikoa** destilatzen eta agurearen azukreaz espekulatzen eman nuen eguna. Juan Garzia

Gero 250ºC-ra berotzen genuen bisulfato horregaz azido tartarikozko nahaste bat, hala azido tartarikoa **azido pirubiko** bihurtuz deshidratatzen da eta destilatu. Juan Garzia

Eugenol eta **azido pirubiko** usaina zerion artean ere. Juan Garzia

100 *azido poliprotiko* *(corpusean ez dago; ETCn **15** agerraldi)*

Gatz azidoetan (**azido poliprotikoetatik** datozen gatzak, hidrogeno atomo ordezkagarriak dituztenak), molekulan geratzen diren hidrogeno ordezkaezinen kopuruaren arabera izendatzen dira, dagokion aurrizkia erabiliz. ETC-entziklopedia

Gatz azidoak konposatu kuaternarioak dira, non **azido poliprotiko** baten protoi bat katioi metaliko bat ordezkatzen du. ETC-entziklopedia

Azido poliprotikoak protoi bat baino gehiago eman dezaketen substantziak dira, esate baterako, H2SO4, H2SO3, H3PO4, H2CO3 eta H2S-a. ETC-zientzia, zuzenbidea

Jakina da **azido poliprotikoek** ez dituztela hidrogeno guztiak erraztasun berdinarekin lagatzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

101 *azido prusiko* *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Azido zianhidrikoa edota zianuro hidrogenoa, maiz **azido prusikoa** deitua, formulazio organikoan metanonitriloa izena jasotzen duena, konposatu kimiko bat da eta HCM formula kimikoa du. ETC-entziklopedia

Haziek glukosido zianogenikoak dituzte eta urarekin kontaktuan **azido prusikoa** sortzen dute, oso toxikoa. ETC-entziklopedia

Urtea eta urte eta erdi artekoak jaten dituzte, zaharragoek pozoi hilkorra garatzen dute (**azido prusikoa**, zianuroa). ETC-prentsa

Ez dauka **azido prusikoaren** usain berezi hori; potasio zianuroa izango da segur aski. ETC-literatura, saiakera

Arriskua, ordea, bene-benetakoa da irudimenezkoa izan arren; irudimenak grabitateak bezain benetan eragiten baitio gizakiari, eta **azido prusikozko** dosi batek bezain seguru hil lezake. ETC-literatura, saiakera

Oso gai desatseginak probatu zituen; besteak beste, merkurioa, **azido prusikoa** (Scheeleren beste aurkikuntza bat) eta hidrogeno zianuroa. ETC-literatura, saiakera

Eta beraren aurretik aita ibili zuan iruzurrean, Matusalen Bloom, biajante lapurra, **azido prusikoaz bere** burua hil zuena, herrialde osoan bere bizi osoan bere purtxileria eta penikeko diamanteak parrastaka saldu ondoren. ETC-literatura, saiakera

102 *azido puniziko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Azido punizikoa edo Azido trikosanikoa kate luzeko gantz-azido poliasegabe bat da, C18H30O2 formula duena. ETC-entziklopedia

103 *azido saliziliko* *(corpusean ez dago; ETCn **57** agerraldi)*

Azido salizilikoa (Latinezko, sahats hitzetik ekarria; C7H6O3) bentzenotik lortzen den azido karboxilikoa da. ETC-entziklopedia

Azkenik ezin aipatu gabe utzi zume zuria edo sahatsa (Salix alba), aspirinaren jatorria, beronen substantzia aktiboa, **azido salizilikoa**, bereziki azalean eta gerba emeetan dago. ETC-prentsa

Baina **azido salizilikoaren** azetilazioa ez zen 1853a arte lortu; Gerhardt kimikari gazteak egun erabiltzen dugun aspirina sortu zuen. ETC-prentsa

Zehatzago esanda, **azido salizilikoaz**, aspirinaren osagarrietako batetaz. ETC-prentsa

Gaitzerdi! **Azido salizilikoa** du hostoetan eta odol gora-beheren minak sendatzeko aproposa... ETC-prentsa

Azido salizilikoa izeneko substantzia bat dute, eta normalean aspirinari alergia dioten pertsonek mailukiei ere izaten diete. ETC-prentsa

Salizina lortu zen aurrena, eta **azido salizilikoa** gero. ETC-prentsa

Azido salizilikoa : Hanturaren eta erreumaren aurkako efektuak dituen aspirinaren aitzindari naturala da. ETC-prentsa

Duela 50.000 urte inguru, neandertalek **azido salizilikoa** eta propietate antibiotikoak dituzten lizunak kontsumitzen zituzten, aste honetan jakin denez. ETC-prentsa

Azidulatzerakoan, **azido salizilikoa** askatuko da, eta, ondoren, aurrerago adieraziko dugun moduan kuantifikatuko da. ETC-zientzia, zuzenbidea

104 *azido seleniko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Aitzitik, **Azido selenikoarekin** erreakzionatzen du, eta aqua regiatan disolbatzen da. Azido nitrikoak metala 3 ioira oxidatzen du, baina soilik minutu batzuetarako. ETC-entziklopedia

105 *azido sorbiko* *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Azido sorbikoa eragin antifungikoa duen konposatua da, C6H8O2 formula kimikoa duena. ETC-entziklopedia

Azido parahidroxibentzoikoaren esterrak (parabenoak) eta **azido sorbikoaren** eta azido bentzoikoaren gatzak dira kontserbatzailerik erabilienak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikerketa honetan, hainbat motatako kontserbagarri antimikrobianoak izan ziren aztergai: azido organikoak (azido salizilikoa, azido bentzoikoa eta **azido sorbikoa**), azido 4-hidroxibentzoikoaren esterrak (metil-, etil-, propil- eta butil-parabenoa), isotiazolinonak (metilisotiazolinona, klorometilisotiazolinona eta bentzisotiazolinona) eta triklosana. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gehigarri batzuk erabiltzen dira janari-industrian elikagaien kontserbazioa bermatzeko eta mikrobio deskonposatzaile eta patogenoen hazkuntza inhibitzeko: nitratoak eta nitritoak (kopuru txikitan txorizoari eta txistorrari ere gehitzen zaizkie, izan litezkeen botulismoaren bakterioak hiltzeko), azido propionikoa, **azido sorbikoa** , eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

106 *azido sukziniko* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Karbono hidrato gluzidoak hartziten dituzte **azido sukziniko** eta azido azetiko azetikoa sortuz. ETC-entziklopedia

Farmako bat manitol urtuan, edo, manitolaren eta beste karbohidrato baten nahaste urtuan edo **azido sukziniko** urtuan, adibidez, disolbatzen bada eta nahastea solidotu edo kristaldu egiten bada, 'solidoa solidotan' disoluzioa sortzen da, non farmakoa molekula bakarreko dispertsioan baitago. ETC-zientzia, zuzenbidea

107 *azido sulfhidriko* *(corpusean ez dago; ETCn **20** agerraldi)*

Azido hiposulfurosoa ekoizteko **azido sulfhidriko** solidoaren eta uraren arteko nahasketa erradiazio ultramorepean jarri behar da, eta ondoren hura berotu. ETC-entziklopedia

Norbaiti **azido sulfhidriko** dosi masibo bat jaurtiz gero, berehala hilko da. ETC-prentsa

Zentral horrek sumendietako beroa erabiltzen du energia lortzeko, baina bidean karbono dioxidoa (CO2) eta **azido sulfhidrikoa** ere (H2S) sortzen ditu. ETC-prentsa

Kimiosintesia deitu zaio prozedura horri, eta, funtsean, tximinietako gaseko **azido sulfhidriko** pozoitsuan egindako erreakzio kimiko exotermiko bat da bakterioak erabiltzen duena energia lortzeko. ETC-literatura, saiakera

Azido klorhidriko, **azido sulfhidriko** eta antzeko izenak hidrogeno kloruro edo hidrogeno sulfuro bezalako konposatuen ur-disoluzioak adierazteko erabiltzen dira, eta, hortaz, ez dira konposatu kimikoen izenak, nahasteenak baizik. ETC-zientzia, zuzenbidea

108 *azido sulfidriko*

Azido sulfidrikoaren gelara, hilgarria baitzen han atmosfera, intimitate-irrikaz zeuden bikoteak erretiratzen ziren, eta bakartiren bat mokadu bat jatera. Juan Garzia

Halaz guztiz, denek bizirik zirauten, aspaldi handian gertatutako historien parte baitziren, gure ama txikia izan eta honelakoak entzun zituen garaikoak: "nire zakurra'n ahizpa" edo "ze'en usaia du **azido sulfidrikoak** ". Fernando Rey

109 *azido sulfuriko*

Hala, nire zink sulfatoa itsuski kontzentratu zen azkenerako, eta hausño zuri halako bilakatu, eta laino itogarritan isuri zuen **azido sulfuriko** guztia edo ia. Juan Garzia

Gainerakoan, **azido sulfuriko** hutsa zen Tomas; inon den astakeriarik handiena bota zezakeen begitartea mudatu gabe. Aingeru Epaltza

Bon! egin zuen gasolinak **azido sulfurikoarekin** eta potasio kloratoarekin bat egindakoan. Rafa Egiguren

Gurasoen ustez, **azido sulfurikoan** desegin zuten. Juan Kruz Igerabide

Azido sulfurikoz erretako emakumeak dira. Gotzon Garate

Istripuaren ondorioz, trena bidetik atera zen eta gutxigatik ez zuen jo geltokian gelditua zegoen eta **azido sulfurikoa** zeraman tren bat. Berria - Mundua

Azido sulfurikodun hodeiak ditu, eta tenperatura oso altuak, 480 gradu arterainokoak. Berria - Gaiak

110 *azido sulfuroso* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Oxoazido ezagunenak **azido sulfuroso** (H2SO3) eta azido sulfurikoa (H2SO4) dira, azken hau egonkorrena, sendoena eta erabilena izanik. ETC-entziklopedia

Beste taldeetan bezala, garrantzia du estekatzaileen izaera deskribatzeak, adibidez, **azido sulfuroso** eta azido sulfonikoaren kasuak bereizteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

111 *azido taniko* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Erdi Aroan, **azido tanikoz** egiten zen tinta beltza, baina kalitate txarrekoa zenez, garai hartako eskuizkribuak kolorea galduz joan dira denborarekin. ETC-entziklopedia

Oro har, material organikoei kelatutako burdina metabolizatzean prezipitatzen da burdina (esaterako, azido humikoei edo **azido tanikoei** kelatutako burdina metabolizatzen denean). ETC-zientzia, zuzenbidea

Brionyk katilu batean prestatu zuen **azido tanikoa** , eta kotoi-bilgua hartu zuen. ETC-literatura, saiakera

112 *azido tartariko* muztioa hartzitzen den ontzietan osatzen den gaitik ateratzen den azidoa.

Gero 250ºC-ra berotzen genuen bisulfato horregaz azido **tartarikozko** nahaste bat, hala azido **tartarikoa** azido pirubiko bihurtuz deshidratatzen da eta destilatu. Juan Garzia

113 *azido trikarboxilikoen ziklo* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Krebs zikloa (azido zitrikoaren zikloa edo **azido trikarboxilikoen zikloa** ere deitua) bide kataboliko bat da, karbono hidrato gluzido, gantz-azido eta aminoazidoen oxidazioan parte hartzen duena. ETC-entziklopedia

Sistema bizietan, **azido trikarboxilikoen zikloak** (ATZ) -azido zitrikoaren zikloa edo Krebs-en zikloa izenarekin ere ezagutzen da- elikagaietatik eratorritako energiaren bi heren sortzen ditu, goi-mailako organismoen kasuan. ETC-zientzia, zuzenbidea

114 *azido uriko*

Agian haien iraizkinak, ehuneko 90 **azido uriko** , ugari lor zitezkeen, aldiko peza ez txikiegitan eta purutasun-baldintza zentzuzkotan. Juan Garzia

-Hori bai, biharamunean ongi begiratu beharko dizkidazu kosterola eta **azido urikoa** ... Joan Mari Irigoien

Odolean, bada beti **azido urikoa** , eta hark eratzen dituen konposatuak pilatu egiten dira batzuetan -kristal gisa horiek ere- buruko edo oinetako artikulazioetan, batez ere behatz lodian, eta hezueria eragiten dute. Irene Aldasoro

Organismoan hondakinak metatzen ari zitzaizkion, eta erabat oxidatu gabeko produktuak sorrarazi behar zituen horrek, **azido urikoa** batez ere. Josu Zabaleta

115 *azido zianhidriko*

Hemen borreroak ez du **azido zianhidrikorik** erabiltzen ez dio laidozko pikotako lepokoari eragiten ez daki aizkoraz pikatzen ez du gillotina askatzen ez dio 2.000 boltioko aulkiaren kisketari ematen ez da aski trebea urka-bilurra egiteko.. . baina heriotzaren galerian zaude hemen. Koldo Izagirre

116 *azido zitriko*

Eta **azido zitrikoa** bilatu beharko duzu. Joseba Sarrionandia

117 *azido zitrikoaren ziklo* *(corpusean ez dago; ETCn **132** agerraldi)*

Biokimikan garrantzi berezia dauka izaki bizidun gehienen metabolismoan egiten den **azido zitrikoaren zikloaren** (Krebs zikloaren) tarteko metabolito gisa. ETC-entziklopedia

Azido zitrikoaren zikloa erreakzio biologikoen segida bat da, eta garrantzi handia du zelulen metabolismoan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gibelera heltzen direnean, **azido zitrikoaren zikloaren** bidez oxidatu egiten dira, eta CO2 bilakatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

118 *dietilamida azido lisergiko* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

LSD, LSD-25 edo **dietilamida azido lisergikoa** droga psikodeliko ia sintetikoa da, ergolina familiakoa. ETC-prentsa

Dietilamida azido lisergiko sintetikoa (LSD) da ezagutzen diren haluzinogeno gogorrenetako bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

119 *euri azido*

Txinako lurren zein uren %30 **euri azidoak** kutsaturik daude. Berria - Gaiak

Bestalde, errauste labeek **euri azidoa**, kea eta usaiak ere sortzen dituztela esan zuen Ruizek. Berria - Euskal Herria

Kutsaduraren kumea dela esan liteke: kutsadura handien dabilen tokian jausten baita **euri azido** dontsu hori. Pello Zabala

Horretaz dakitenak behin eta berriz ari dira beren ahotsa goratzen ingurumenean sor daitezkeen arazo berriak direla eta: ozonoaren hutsartea, **euri azidoak**, negu efektua, eta abar. Pello Salaburu

120 *gantz azido*

Beste batzuek, berriz, glizerina eta **gantz-azido** gantzak; **gantz-azidoen** adibide ezagunetariko bat azido azetikoa da, ozpinaren osagai nagusia. Irene Aldasoro

Ehunka gramo batzuk **gantz-azido** lapurtuak nituen, barrikadaren beste aldeko nire lankideren batek parafinaren oxidaziotik neke handiz lortuak: erdia jan nuen, eta gosea kentzen zuten **gantz-azidook** zinez, baina hain zapore gaitza zuten, ezen uko egin bainion sobratu zena saltzeari. Juan Garzia

Dagoeneko, adibidez, oilo-arrautzarekin eta behi-esnearekin hainbat saiakuntza egin dira, **gantz azido** aseen partez arrauzkiek eta esnekiek asegabeak (insaturatuak) eduki ditzaten. Edorta Agirre

Gantz azido ugaridun txerrikia sortzeko aukera aparta eskain dezaketela diote ikertzaileek, baina oraindik galdera asko daude airean, lor daitekeenaren inguruan. Berria - Gaiak

Omega-3 **gantz-azidoek** alzheimerra saihets omen dezakete. Berria - Gaiak

121 *lurzoru azido* *(corpusean ez dago; ETCn **32** agerraldi)*

Pagoa **lurzoru azido** zein basikoetan bizi da, baina pagadietako landare asko bietako batean soilik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Landareek molibdeno kantitate txikia behar duten arren, lurzoru batzuek (adibidez Australiako **lurzoru azidoek**) ez dute nahikorik. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurzoru azidoek dena disolbatu ohi dute, salbu hezur erreak, baina, kondizio jakin batzuetan, kolagenoa berreskura daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mikorriz ektotrofoak ezartzen ditu; batez ere, **lurzoru azidoko** koniferodun eta hostogalkordun basoetan. ETC-entziklopedia

Gainera **lurzoru azidoak** oso ondo jasaten ditu, eta baita ere apur batez alkalinoak direnetan hazi daiteke. ETC-entziklopedia

Klima epelak edo beroak ditu berezkoak, eta **lurzoru azido** eta lehorrak. ETC-entziklopedia

Hauts eran **lurzoru azidoak** neutralizatzeko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

Nekazaritzarako lurzoru egokia izateko hainbat faktore aztertu behar da: ez dira egokiak **lurzoru azidoak**, mikroorganismoen jarduerarako kaltegarriak direlako. ETC-entziklopedia

Zohikaztegietako landaredia baldintza gogorretan (oxigeno urria, **lurzoru azidoa** eta elikagai mineral gutxi) bizitzeko ongi moldatutako espeziez osaturik dago. ETC-entziklopedia

---

azidofilo *(corpusean ez dago; ETCn **109** agerraldi)* *izond* azidotasun oso baxuko inguruneetan bizi den izakia.

Butroeko itsasadarra ez ezik, eskualdean balio handiko beste hainbat leku daudela gogorarazi dute ekologistek: Barrikako itsasertzeko txilardiak, Astondo eta Gorliz-Plentziako badia eta hondartzak, Barrika eta Gorlizko duna sistemak, artadi kanturiarrak, harizti **azidofiloak** ... ETC-prentsa

Pagadi hau **azidofiloa** dela adierazten digun seinale dira bidean dauden ahabiak. ETC-prentsa

Ingurumen Sailean egindako eskaerei dagokienez, berriz, hiru onartu ditu Udalak: Zero Zabor taldeari 1.980 euro ematea hondakinen inguruan sentsibilizazio kanpaina egiteko; Aranzadi Zientzia Elkarteari 1.500 euro ematea, Arrasateko anfibio eta narraztiak ezagutarazteko ekintzetarako, eta Besaide Mendi Elkarteari 700 euroko laguntza ematea, mendi film tourrerako; aldiz, mendi elkarteari ukatu egin diote beste eskaera bat Kurtzetxikiko artadia, harizti **azidofiloa** eta, besteak . ETC-prentsa

Miramongo parkearen landaretza potentziala bi taldetan bana daiteke: harizti **azidofiloa** alde batetik, eta harizti baso mistoa bestetik. ETC-prentsa

Bertizkoa, berriz, pagadi **azidofilo** hezea da: "120 urtez ez dute ukitu: penintsulako nabarmenenetako bat da, zalantzarik gabe: eta Europako nagusietako bat ere bai, segur aski", erantsi du. ETC-prentsa

Ordunte mendietako substratua silizeoa izaki, pagadi **azidofilo** tipikoak dira bertakoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

pH baxuetan bizi diren izakiak estremofilo mota bat dira, eta **azidofilo** deitzen zaie. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zelulek nukleo esferiko heterokromatiko bat dute, eta, horrez gainera, han-hemenka eskualde basofilo angelularrak dituen zitoplasma **azidofilo** bat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eosinaz tindatzen diren egitura zelularrak, berriz, **azidofilo** edo eosinofilo deitzen dira, koloratzaile azidoekiko duten afinitateagatik (adibidez, eosina). ETC-zientzia, zuzenbidea

Oinaldean nukleoa eta eremu apikalean jariakin-pikor **azidofilo** errefringenteak dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Espainiar Estatuko gune **azidofilo** guztietan hedatuta dago. ETC-entziklopedia

Prokarioto hori **azidofilo** hertsia da, 4tik gorako pH-etan hiltzen baita. ETC-entziklopedia

---

azidosi *(corpusean ez dago; ETCn **134** agerraldi)* *iz* odoleko edo ehunetako azido gehiegitasuna.

Azidosia ehunetan eta odolean azido gehiegi egoteak dakarren egoera anormala da, pH-aren beherakadarekin agertzen dena. Diabetesaren eta beste nutrizio-gaixotasun batzuen azken fasean ikusten da batez ere. **Azidosi** metabolikoa giltzurruneko gutxiegitasunak edo beherakoek eragiten dute; arnas azidosia, berriz, arnas gutxiegitasunak. ETC-entziklopedia

Errakitismoa giltzurruneko **azidosi** tubularra eragiten duten giltzurrun gaitzek ere sor dezakete. ETC-entziklopedia

Koma diabetikoa diabetes mellitus gaitzak jota dagoen gaixo bat deskonpentsatzen denean agertzen den koma da, **azidosi** larriarekin. ETC-entziklopedia

Odolaren **azidosia** sortaraz dezaketen eragileen artean bihotzeko etena, giltzurrunetakoa, diabetesa, luzaroko beherakoa edo proteina askoko dieta egon daitezke. ETC-prentsa

Azidosi larriaren eraginez, animalia hil egin daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zetosi-egoerak **azidosi** metabolikoa eragiten du, hau da, odolaren pH-a jaisten da, eta aldaketa hori oso kaltegarria da zelulentzat. ETC-zientzia, zuzenbidea

Birika-edemak eta perfusio murriztuak hipoxia eta **azidosi** sistemikoa eragin ditzake. ETC-zientzia, zuzenbidea

Izan ere, asfixia terminoa arnas gasen trukearen desoreka eta ondorengoko **azidosi** metabolikoaren garapena bezala defini dezakegu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azidotasun 1 *iz* azidoa denaren nolakotasuna.

Badirudi berez sortzen zaien propietatea dutela ezaugarri hori, lur horretan zuku azido eta garratza aurkitzen baita azpian, eta urak hortik pasatu ondoren ateratzen direnez, **azidotasun** hori eransten baitzaie. Santiago Iruretagoiena

Erretxina bertan fabrikatzen zen: lote guztien jaiotze-agiriak aurkitu nituen, eta ez nien ezer susmagarririk atzeman; **azidotasuna** ez zen beti berdina, baina bai 6tik beherakoa kasu guztietan, arauek agintzen zutenez. Juan Garzia

Lote bat, 6,2ko **azidotasuna** zuela eta, lege-zorroztasun zintzoz baztertua zuen sinadura loretsuko ikuskatzaile batek. Juan Garzia

Sagardoa, analitikoki, ona den jakiteko honako parametroak hartzen direla kontuan azaldu digu Kamiok: mostoaren edo sagardoaren **azidotasuna**, taninoa, alkohola eta ph-

a. Berria - Euskal Herria

Azidotasunik txikiena duen olioa da oliorik onena. Berria - Euskal Herria

Orobat laguntzen dute giltzurrunek odolaren **azidotasun** maila egokia mantentzen eta odolaren presioa eta bolumena egonkortzen. Irene Aldasoro

2 irud/hed

Zorionez, konpainia katalanaren **azidotasuna** ez da azalean soilik geratu eta, adibidez, pozaren pozez ikusi dugu beren burua artistatzat jotzen duten hainbeste momia groteskoen karikatura. Berria - Kultura

Orain dela 200 urte erromantizismotik sortutako mito eztiek bizirik diraute gure buru barruko txoko batean, gaur egungo zinismoaren **azidotasunarekin** nahasturik. Berria - Kultura

---

azidotu, azido(tu), azidotzen **1** *du ad* azidoa erantsi.

Behin horretara ezkero, zaila da huts egiten: soluzioa irazi, **azidotu**, Kippa hartu, hidrogeno sulfuratua pasarazi. Juan Garzia

2 (era burutua izenondo gisa)

Haren barne-estaldurak hartzen ditu urdaileko eduki **azidotuak**; ez da harritzekoa, bada, inoiz duodenoko ultzerak zulatzea. Irene Aldasoro

---

azidotzaile *izond* azidotzen duena.

Substantzia **azidotzaileak** eta Ozono troposferiko aitzindariak. Berria - Euskal Herria

---

azienda **1** *iz* aberea; haragitako eta esnetako hazten diren abereen multzoa.

Goizean goiz, sua berritu eta **aziendak**, zaldi eta behor, brasaren gainetik saltarazten zituzten. Pello Zabala

Aziendak, abelgorriak eta ardiak ere ez omen dira ostiralean mendira eraman behar, eta horrelako uste eta usadio zenbait badira bazterretan, bai. Pello Zabala

Ordu aldaketa hau gehien nozitzen dutenak, halere, bai al dakizue **aziendak** eta haurrak izaten direla? Pello Zabala

Beste herri batzuetan, egun honetan, etxeko **aziendei**, isatseko buztan-puntak mozten zizkieten, eta ile-zurda horiek bedeinkatu eta erre, Aitagure bat esaten zen bitartean: **aziendak** bedeinkatzeko moldea omen zen hau. Pello Zabala

Behi dolutua ikusi eta marru lazgarri haiek aditzeak haserrearazi egin zuen Temple, eta **azienda** hiltzerakoan egiten diren basakeriak ekarri zizkion gogora. Xabier Olarra

Hori izan zen hasiera, eta hala pixkanaka gidatu zuen abeletxeetako **aziendarekiko** eta makineriari buruzko ardura zehatzetik biologiaz eta zientziez oro har arduratzera. Xabier Olarra

Behi, ardi eta txerri **aziendaren** diagramekin hasten zen, eta, hurrena, gero eta arrantxo konplexuagoetarako abeletxeen eta bazkatokietako tresnerien diseinuak zetozen. Xabier Olarra

Azienden azpitarako baliagarri den horbel, garo, lasto, ihi eta beste, azpitarako guztiak izan dira ihaurkin. Pello Zabala

2 (izenondoekin)

Horra gainera gizateria, eta ezkatadun animalia igerilari isilak eta **azienda** gizenak eta piztiak eta hegazki koloretsuak, urgune gozatsuetara maiz jotzen dutenak hilak ohoratzen dituzte, **azienda** beltzak sakrifikatzen, jainko maneei opariak eskaintzen eta, zenbat eta okerrago aurkitu, gogotsuago jotzen dute erlijiora. Xabier Amuriza

3 (hitz elkartuetan)

Etxeko abere-**aziendak** hartu eta, sokatik trailan, itzuli bat edo beste -auzo batzuetan hiru eta zazpi ere bai- emanaraztea. Pello Zabala

Eguraldi txarrez, neguan abere-**aziendak** behartuta sentitzen zirenean, hantxe kobazuloko lizar-abarrak eman. Pello Zabala

Behi-**aziendarekikoak** dira Templeren sentipenik sakonenak; maitasunaren antzeko sentipenak ditu harekiko: samurtasuna eta errukia. Xabier Olarra

Antzeko zerbait egiten omen diote behi-**aziendari**; lepoa moztu baino lehen, hanketatik zintzilik jartzen dituzte, eta burura jaisten zaie odola, eta hori hiltegi zuzenetan. Xabier Olarra

Iragarle ttiki eta haziago, animalia-hegazti-**azienda**, edozein eta edonor zitzaion balios, susmo-zirkinik bideratzen bazion. Pello Zabala

4 ***ahuntz-azienda*** *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Behi, ardi, zaldi eta **ahuntz azienda** lehiaketak antolatuko dituzte eta ez dira faltako talo-egileak eta txorizo, gazta eta bestelako saltzaileak. ETC-prentsa

Behi-azienden, ardi-azienden, **ahuntz-azienden**, txerri-azienden, zaldi-azienden eta hegaztien inguruko datuak erabili dituzte horretarako. ETC-prentsa

Zaldi, behi, asto eta **ahuntz aziendak** ugari eraman zituzten. ETC-prentsa

Paula Jauregi biologo eta biokimikariak behi eta **ahuntz azienden** immunitate sistema izan du aztergai Nafarroako Unibertsitate Publikoan defendatu berri duen doktore tesian. ETC-prentsa

Espainiako Elikadura Kodeak honako definizio hau ematen du haragiari edo okelari buruz: bobido, artabere, suido (basurdea), **ahuntz-azienda**, ekido eta kamelido osasuntsu eta baldintza higienikotan hildakoen gihar jangarrien atalak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Oro har, debekaturik dago **ahuntz azienda** sartzea zuhaitz edo zuhaixka espeziak dituzten mendietan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ahuntz-aziendaz ahuntzainak arduratzen dira. ETC-entziklopedia

Behi, ardi, zaldi, txerri zerri eta **ahuntz azienda** nagusiak izan dira, mendi larratuan hazita. ETC-entziklopedia

Sukar aftosoa edo ahoeria behi, ardi, txerri eta **ahuntz azienden** gaitza da. ETC-entziklopedia

Abere-hazkuntzak ez du halako muntarik (ardi- eta **ahuntz-azienda**, gameluak) eta yemendarrak gero eta ardura handiago ari dira jartzen arrantza-baliabideen ustiapenean. ETC-entziklopedia

5 ***ardi-azienda***

6. Rieti probintzian, izurrite oso larria zabaldu zen, behi- eta **ardi-azienda** guztiak krudelki garbitzen ari zena, eta ez zen erremediorik ikusten. Askoren artean

6 ***asto-azienda*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Behi- eta **asto-azienda** askoz ere murritzagoa da. Arabiako zaldiak desagertzear daude, ehiztariek ia erabat kalitu dituzten basamortuko basabereak bezala. ETC-entziklopedia

7 ***azienda beltz*** txerria.

Ezbeharrak daramatzan edonon hilak ohoratzen dituzte, **azienda beltzak** sakrifikatzen, jainko maneei opariak eskaintzen eta, zenbat eta okerrago aurkitu, gogotsuago jotzen dute erlijiora. Xabier Amuriza

8 ***azienda gorri***

Horrekin batera, senarraren jeloskor zegoen, eta inbidiagarria zitzaion Jainkoak emana zion emazte mardul sendoa, "**azienda gorria**" haren iritzian. Patxi Zubizarreta

9 ***azienda handi*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Gure lurretan kolonizatu dira eta haiek dira **azienda handien** jabe, lur handien jabe, aberastasun naturalen jabe, haiek gobernatzen dute herria, haiek agintzen dute, legeen jabe dira. ETC-prentsa

Orreagako, Iruñeko eta Ziortzako monasterioek **azienda handiak** zituzten, eta horiek bazka zezaten saroi ugari zeuzkaten euren jabetzan. ETC-prentsa

Lurjabe errentadun handiek eta **azienda handien** jabeek, nagusi baitziren udaletan -edo eragimen handia baitzuten behinik behin-, trabak jarri zizkieten luberritzeei. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aipatutakoa **azienda handien** kasua dugu, ungulatu handiena partikularzki, izan dadin oreina (Cervus elaphus), basurdea (Sus scrofa), orkatza (Capreolus capreolus),

sarrioa (Rupicapra rupicapra), eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Batzuetan, eraikitzeko lurra trinkotzen denean edo egunero **azienda handia** lurzoru beretik igarotzean, landareek sustraiak bota ezin izatea eragiten du, eta beraz, lurra antzu bihurtzea. ETC-entziklopedia

Orreagako, Iruñeko eta Ziortzako monasterioek **azienda handiak** zituzten, eta horiek bazka zezaten saroi ugari zeuzkaten euren jabetzan. ETC-entziklopedia

10 *azienda larri*

Zirudienez, aker hura oso ondo konpontzen zen hango **azienda larriekin**, eta lasai asko ibiltzen zen batera eta bestera haien sabelen azpian, bere etxean balego bezala. Jose Morales

11 *azienda xehe* *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Geu garen azienda nagusiak jaten zituenak batzuk, baina baita gero geuk jango genituen **azienda xeheak** zein larriak jatekoak ere. ETC-prentsa

Artzainek, tutua jorik, **azienda xehe** guzia bildurik zuten eta lur komunaletara igo ziren larre bila. ETC-literatura, saiakera

Goizaldean jaiki, oiloei eta **azienda xeheari** jaten eman, gizonen lehen otordua zerbitzatu, haurrez arduratu, eta soroetara joaten da, edo basora, edo baratzera. ETC-literatura, saiakera

Oro har, azienda (abeltzainak hazitako abereak edo animaliak) bi taldetan sailka daitezke: azienda larria (behiak, behi zezenak eta zaldiak) eta **azienda xehea** (ardiak, txerriak eta ahuntzak). ETC-entziklopedia

12 *azienda zuri* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Kabalea urrundu bere adar eta hostajetik, baita **azienda zuria** ere: mertxikadi handi bat inausi eta ebakitako adarrak garbitu ondoren ia pozoiak garbitu zuen artalde baten grabiolak jasoak ditu "Saint-Louis Globe Democratic"-ek 1893an. ETC-prentsa

Ardi-azienda edo **azienda zuria** zaintzen artzainak aritzen dira. ETC-entziklopedia

Bestela, **azienda zurian** Karrantzako ardi muturbeltz eta Karrantzako ardi muturgorriak ditugu, eta azienda gorrian behi montxina. Azkenik, Enkarterriko billanoak ere aipatzekoak dira. ETC-entziklopedia

13 *hegazti-azienda*

Iragarle ttiki eta haziago, animalia-**hegazti-azienda**, edozein eta edonor zitzaion balios, susmo-zirkinik bideratzen bazion (Ik. Urtarrilak 24koa, Martxoak 15 eta 28koa, Maiatzak 28koa). Pello Zabala

14 *mando-azienda* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Zaldi- eta **mando-aziendak** gobernatzeko buruan jartzen zaizkien uhalek eta ahokoak osatutako multzoa da. ETC-entziklopedia

15 *txerri-azienda*

Urtetan berak egindako planoak biltzen zituen liburu bat eman zidan, honako izenburuko honetakoa: Beef Cattle Behaviors, Handling, and Facilities Design eta nik liburuko diseinu konplexu eta ederrak miretsi nituen, eta orobat liburuaren aurkezpen logikoa; izan ere, behi, ardi eta **txerri aziendaren** diagramekin hasten zen, eta, hurrena, gero eta arrantxo konplexuagoetarako abeletxeen eta bazkatokietako tresnerien diseinuak zetozen. Xabier Olarra

16 *zaldi-azienda* *(corpusean ez dago; ETCn **58** agerraldi)*

Santa Luziako feriak ospe handia du **zaldi aziendarako** azoka gisa, eta han elkarrekin nahastuta ikus zitezkeen baserritarrak eta ijitoak, tratu bizian preziorik onena lortu nahian. ETC-prentsa

Zaldi aziendaren feria, Gariton de Ripaldan, Nafarroako Erresuma futbol estadioaren atzekaldean. ETC-prentsa

Urtero bezala, Iruñeko **zaldi aziendaren** feria egin zuten, Nafarroako Erresumaren atzealdean, eta ganaduzaleak kexu ziren, gutxi saltzen dutelako. ETC-prentsa

Behi-azienden, ardi-azienden, ahuntz-azienden, txerri-azienden, **zaldi-azienden** eta hegaztien inguruko datuak erabili dituzte horretarako. ETC-prentsa

Zaldi azienden eta artzain gazten lehiaketei erreparatu zieten, batez ere, bisitariek. ETC-prentsa

Goizean goizetik, hainbat erakustoki egongo dira ikusgai; besteak beste, **zaldi aziendak** eta bestelako abereak eta nekazaritzako tresnak ikusteko aukera egongo da. ETC-prentsa

Azkenaldiko joeren artean, **zaldi azienden** igoera "ikusgarria" nabarmendu dute, gero eta gehiago kontsumitzen baita, eta esportatu ere bai: batez ere, Italiara. ETC-prentsa

Egindako lanak bere fruituak eman ditu, eta, iaz, lehen aldiz, **zaldi azienda** tokiko animalien arrazetarako laguntza lerroan sartu zuten. ETC-prentsa

Besikula-estomatitisa gaitza eragiten du birus horrek behi-, txerri- eta **zaldi-aziendan** eta, zenbaitetan, gizakietan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Leku batzuetan ahuntz- eta **zaldi-aziendak** garrantzitsuak dira, kunikultura edo untxi-hazkuntza, eta erle-hazkuntza. ETC-entziklopedia

Oro har, behiei abelgorriak esaten zaie (bertako arraza gorriei, behintzat); ardiei, abelxuriak; eta zaldi-behorrei, abelbeltzak, agian garai batean Euskal Herria Euskal Herriko **zaldi azienda** nagusia pottokak zirelako. ETC-entziklopedia

Ahokoa **zaldi-azienden** ahoan jartzen den burdinazko tresna da, eskuz gobernatu ahal izateko. ETC-entziklopedia

Nekazaritza (bananak, kafea, kakaoa, artoa, tabakoa, azukre kanabera eta barazkiak) eta abere hazkuntza (behi, ardi eta **zaldi azienda**) dira ekonomiaren oinarriak. ETC-entziklopedia

Hiriko jardunbide nagusia nekazaritza, abeltzaintza (ganadua, **zaldi-aziendak**, elur-oreinak) eta larru-salerosketa da. ETC-entziklopedia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azienda hilen** (4); **azienda hiltzen** (3); **baina azienda** (3); **zen azienda** (3)
> **ukuiluko aziendak** (3)
> **behi aziendari** (3)

---

aziendadun *iz* azienda duen pertsona.

San Fernandoak arte, beti beldur **aziendadunak**. Pello Zabala

---

aziendategi *iz* abereak gordetzen diren edozein toki babestu edo estalpetu, baserritik bereizia. ik**abeletxe**; **abeltegi**.

Bihitegiak hutsik zeuden, hutsago **aziendategiak**. Aingeru Epaltza

Lortu ere lortu du bere enpresa sortzea, eta bere-kasako aholkulari eta **aziendategien** diseinatzaile-lanetan aritzea mundu osorako. Xabier Olarra

---

azieta *iz ipar* platera.

Galdegina den gauza bakarra, bakotxarena balitz bezala onartzea haur hori, mahainean **azieta** bat, lo egiteko ohe bat, maitasun ainitz eta horra ezin ahantzizko bakantzak haur batentzat. Herria

28 a larunbata azken eguna, egun guziez bezala goizean soinua, 10,30 tan zoin gehioka tiroka **azieta** haustea, Ermita deitzen den gallurrean, aratsaldean bi pilota partida. Herria

Xingar xerra eta arrautzak **azietan** pausatu zizkion. Itxaro Borda

Ene paketako **azietak** hartu eta ateraino hurbiltzen naiz bazkariaren hartzeko, zaintzaleek emanik. Filipe Bidart

Bi **azietak** txorrotan garbitu, garbi-oihala mahai gainean hedatu eta han uzten dut baxera idortzen. Filipe Bidart

Ainitzetan, orain, eguzki pixka bat delarik, ate aintzinean jartzen niz nere **azietarekin** ... bazkaria prestatuta. Menane Oxandabaratz

azikliko *(corpusean ez dago; ETCn **93** agerraldi)* *izond* modu ziklikoan gertatzen edo aritzen ez dena.

Zikloalkanoek IUPAC arauen araberako izenak dituzte, eta haien propietateak, normalean, karbono kopuru bera duten analogo ez-ziklikoenen ezberdinak dira (ez-ziklikoei **azikliko** ere deitzen zaie). ETC-zientzia, zuzenbidea

Egitura eta portaera bera duten objektuek klasea osatzen dute, eta klaseak hierarkiatan (edo grafo **aziklikoetan**) antolatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

1 Alkano **aziklikoen** formula orokorra CnH2n2 da, non n-k karbonoen kopurua adierazten baitu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Batzuetan albo kate irekiak zikloak baino atomo gehiego dituenean edo molekula batek ziklo bat baino gehiago baditu, zikloalkanoa konposatu **aziklikoaren** ordezkatzailetzat hartzen da eta zikloalkil moduan izendatzen da. ETC-entziklopedia

Poro sortzaileak (Gramizidak): Ionoforoak ez bezala, aminoazido (polipeptido **aziklikoak**) kate linealak dira, akzio mekanismo desberdin bat dutena. ETC-entziklopedia

Biosferan dagoen isoprenoide **azikliko** ugariena denez, ingurune urtarretan traza biogeokimikoak aztertzeko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

Heteroziklo aseek deribatu **aziklikoek** bezala jokatzen dute. ETC-entziklopedia

Modu honetan, ordena bakoitza grafo zuzendu **azikliko** baten berdin bezala ikus daiteke, non adabegi bakoitza partzialki ordenatutako multzoko elementuak diren eta bide zuzendu bat ematen duena "a"-tik "b"-ra baldin eta soilik baldin "a? b". **Aziklikoaren** baldintza kentzean, aurre-ordenak ere lor daitezke. ETC-entziklopedia

---

azil ik **hazil**.

---

aziliar *(corpusean ez dago; ETCn **43** agerraldi)* **1** *izlag/iz* Azil aldikoa, Azil aldiari dagokiona.

1980ko hamarkadan topaturik, Angel Armendaritzek bertan indusketa lanak egin zituen, Kalkolito, Brontze Aroko eta **aziliar** aztarnak topatuz. ETC-entziklopedia

Herriaren ekialdean, Zatoiako leizea dago; bertan, orain dela 13.000 urte jendea bizi zen, eta **Aziliarretik** Brontze Aroa arteko aztarnak daude. ETC-entziklopedia

Aziliar aldiko gizakia ehiztaria zen eta fruituak eta itsasoko soinberak jaten zituen, halaber. ETC-entziklopedia

2 *aziliar kultura* *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Aziliar kultura Azken Izotz Aroaren amaierari eta holozenoaren hasierari loturik dago. Klima epeldu zen eta itsasoaren maila igo. ETC-entziklopedia

---

azilo *(corpusean ez dago; ETCn **51** agerraldi)* **1** *iz* azido karboxilikotik eratorritako erradikal organikoa.

Gantz-azidoen sintesian, binaka gehitzen zaizkio karbonoak molekula aitzindariari, **aziloa** garraiatzen duen proteinaren (ACP) laguntzarekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bentzenoak alkanoilo (**azilo**) haluroekin erreakzionatzen du aluminio-haluroaren aurrean, eta 1-fenilalkanonak (fenilzetonak) sortzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Formaldehidoa berezia da zeren, aurrerago esan den moduan, HO2 erradikalen iturria baita fotolisia pairatzean, **azilo** erradikala formatuz. ETC-zientzia, zuzenbidea

2 *azilo talde* *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Penizilina erdisintetiko horien N- **azilo taldeek** ezberdintasunak dituzte egituran, eta, horiei esker, gram-negatiboen kanpo-mintzaren barrura sar daitezke, zelula-hormaren sintesia inhibitzeko (? 3.8 atala). ETC-zientzia, zuzenbidea

A koentzima **azilo taldearen** garraioaren arduraduna da eta erreakzio ugaritan agertzen da, besteak beste, glikolisian, Krebs-en zikloan edota gantzen oxidazioan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Halaber, esan beharra dago gantz-azido edo **azilo talde** asegabeen degradazioa frijitzean ez ezik, edozein tenperatura-igoera txikiren, argiaren edota oxigenoaren eraginez ere gerta daitekeela (berorik gabe). ETC-zientzia, zuzenbidea

Zisteaminaren tiol (SH) taldeari esker, azido karboxilikoekin (oro har) erreakzionatu dezake, tioesterrak agertuz, **azilo taldearen** eramaileak direnak. ETC-entziklopedia

---

azimut **1** *iz* astronomian, meridianoak zeru esferatik igarotzen den zirkulu bertikalarekin osatzen duen angulua.

-Sortalderantz egin behar diagu -esan zidan ene pilotu lagunak, **azimutaren** bidez gure kokalekua zalantzarik gabe zehaztu genuelarik-. Edorta Jimenez

2 *azimut magnetiko* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Iparralde magnetikotik abiatuta kontatzen hasten denean, norabide edo **azimut magnetiko** deitzen zaio. Geodesian edo topografia geodesikoan, azimutak, triangelaketa sistema baten orientazioa zehazteko balio du. ETC-entziklopedia

Aurreko bi angeluetatik bereizteko, horri norabide edo **azimut magnetiko** deitzen diogu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azimutal *(corpusean ez dago; ETCn **54** agerraldi)* *izond* azimutari dagokiona.

Proiekzio horiei **azimutal** deritze. ETC-zientzia, zuzenbidea

c. ml zenbaki kuantiko magnetikoa: zenbaki kuantiko **azimutal** bakoitzarentzat energia-mailak, edo orbitalak, adierazten ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azpigeruza bat geruza baten barneko egoera taldea da, zenbaki kuantiko **azimutal** komun batek definituta, 0, 1, 2, 3 balioek "s", "p", "d" eta "f" etiketei dagozkie, hurrenez hurren. ETC-entziklopedia

---

azinda ik **azienda**.

---

azino *(corpusean ez dago; ETCn **201** agerraldi)* *iz* piramide formako zelulez osatutako egitura biribila.

Guruinen jariatze-unitateak bi eratakoak izan daitezke: hodixkak, epitelio-zelula jariatzailez estaliak, edo, bestela, **azino** esferikoak, lumen txiki baten inguruan antolaturik dauden zelula jariatzaile piramidalez osatuak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Guruin batzuen azinoak zelula serosoz zein mukosoz daude osatuta, **azino** mistoak deritze. ETC-zientzia, zuzenbidea

Geruza honetan aurkitzen dira, baita ere, **azino** muki-jariatzaileak eta ilargi-erdi serosoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Haurra jaio ondoren ere, hazten jarraitzen du, **azino** mukitsuen eraketarekin. ETC-entziklopedia

Azino serotsuz osatua dago %90ean, eta, gainontzekoa, **azino** mistoak dira. ETC-entziklopedia

---

azio *iz* gaitzezgarritzat hartzen den ekintza.

Ekintza diote, baina **azio** behar zukeen: zerbait egin beharra dago eta, armaz edo lehergailuz, zerbait egitera doaz, eta puntu. Iñaki Segurola

Aitak bekozko iluna jartzen zuen, bibote luzeak kizkurtu eta zakarki galdetzen zien andrazko haiei ea gogoratzen ziren hamabi umeen artetik nor izan zen **azioa** egin zuena. Koldo Biguri

Bazirudien mutikoak barkatua zidala karteran pixa egin nioneko **azio** hura. Pello Lizarralde

Deabruaren **azioa**. Anton Garikano

Ohiz gaineko saria ohiz gaineko **azioa** egin duenari baizik ez diot ematen. Matías Múgica

Morroi barren-beltz eta bihotz-makur hura fanatikoa, bortizkeriazalea eta koldarra zen, gustatu egiten zitzaion bere **azioak** kontatzea, ankerkeria erakusten zuen koldartasuna ezkutatzeko, zakarkeria tolesgabetasun-itxurak egiteko eta zitalkeria trebetasuna bailitzan adierazteko. Koro Navarro

Euskaldun itxurak egiteko edo denak baino euskaldunago, jatorrago eta autozentratuago agertzeko bide erraza jarri dio askotxori Juezaren autoak, eta polizia tormentatzailearen **azioak**. Iñaki Segurola

Piarresen **azioak** (Pello harrituari kontatzen dizkionak) ez dira oso handi, ez dira oso txar. Pablo Sastre

Bien **azioen** laburpena aletu zidan istant batean. Aingeru Epaltza

Berehala kendu nuen asmo hura burutik, ondo asko bainekien Anaia Dabitek ez zidala horrelako **aziorik** sekula barkatuko. Pedro Alberdi

Munduaren jaun eta jabeek *Operation Iraqi Freedom* jarri zioten izena Mesopotamia zaharra indarrean irabazteko **azio** odoltsuei. Iñaki Segurola

Itsu-itsuan nire denborako **aziorik** latzena egitera nindoan baina oraindik ez nekien zein zen hura egiteko modurik seguruena. Matías Múgica

Egindako **azio** txar guztien barkamena, ontzi bateko agintea, eta 30.000 dolarreko saria eskaini zioten ingelesek New Orleansen aurka egiteko asmoa zuten erasoan laguntzen bazien. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez diot, halare, inori **azio** txarrik egin, eta are gutxiago abokatu batengana jo justizi eske. Patziku Perurena

Eta hainbeste zarata, ikuskizun, eramankizun eta penatze, **azio** sinboliko eta mediatiko batzuk fakturatzeko! Iñaki Segurola

Pitxiak, Tellagorriri ezin hobeto zegokion **azio**-lagunak, kontrasterako balio zion hari. Koro Navarro

---

aziotxo *iz adkor* azioa.

Eguraldi bakeoso eta tankera onekoa, berez, aldatzeko gogo handirik ez duena, baina zorioneko bero-depresio horrek, fronte apartekorik gabe, baina bere **aziotxoa** hara nola ekartzen digun hegoaldeko lur erre labegoritutik. Pello Zabala

Nahiz eta eguraldi hotzagoari dagokionez, ekaitzen garai propioa ez izan, euriteek egin dituzte beren **aziotxoak**. Pello Zabala

Kosta alderago, berriz, txakolinaren lanak, dolarekoak pasa arren, bete-betean; sagardoarenak ere oraintxe ditugu puri-purian, amaitu ezinik: muztio gazteak ez dezala okerrik izan, ilargi kosken batek bere **aziotxoren** bat egiten ez badio...! Pello Zabala

---

azitrai *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi) iz* Lamiaceae familiako landare generoa *(Satureja* sp.).

Azitraia ("Satureja") Lamiaceae familiako landare genero bat da. ETC-entziklopedia

Hazi bakanak hazten dira gainean, haizeak eramanik, lurrak kaparra eta **azitraia** onartzen dituen lekuetan. ETC-literatura, saiakera

Perrexila, ilar gozoak, udako **azitraia**, kuia luzeak, eta europar letxuga kizkurrak, baita tomateak ere. ETC-literatura, saiakera

Basalandareak bildu nituen, eta eskuak **azitrai**, salbia eta txortalo usainez perfumatu zitzaizkidan. ETC-literatura, saiakera

Berdetan mikatzetan mikatza ezkaiaz eta **azitraiaz** gozaturiko gatzuretan beratu behar da ondo umatutako beltzen gisan jateko moduko oliba izan dadin. ETC-prentsa

Proventzal belarrak dituena ere badute: erromeroa, **azitraia**, ezkaia, albaka, mendaroa eta oreganoa. ETC-prentsa

---

azkaindar *iz* Azkaingo biztanlea.

Hauen artean **azkaindar** bat. Berria - Harian

Gazteluma beka irabazi eta 'Skyroom' Filipinetara eramaten duen eleberri poliziala kaleratu du Ramuntxo Etxeberri **azkaindarrak**. Lehen partidan Guerendiain senpertarrak Ibarburu **azkaindarra** garaitua zuen 40-32. Berria - Kultura

Argibel **azkaindarra** izan zen lehena. Aingeru Epaltza

Buruz burukoan Xumai Murua **azkaindarrarekin** aritu zen bertsotan. Berria - Kultura

Arriskatu eta irabazi, ikusleen txalo zaparradak aldageletara lagundu zuten **azkaindarra**. Berria - Kirola

Aspek antolaturiko jaialdietan ezohikoa bada ere, **azkaindarrak** eta lemoarrak larunbatez neurtuko dituzte indarrak. Berria - Kirola

---

azkar *(ETCn **70.238** agerraldi)* **1** *izond batez ere ipar* indartsua, bizkorra, sendoa; nagia ez dena, ernaia. lasterra; buru-ernaia, adimen argikoa.

Taxu **azkar** bat egitera behartu du bere burua: maiatzeko bigarren astelehena izan behar du. Pello Lizarralde

Zerrendari begiratu **azkar** bat eman diot. Iban Zaldua

Modu **azkar**, itxuroso eta diskretoenean. Joxemari Iturralde

Ez dute, aperantziarik ere, beste jaun-etxeek Etxauzea balio, ez Leizaratzuk ez Urdoz jauregiak, nahiz hau guziz ederra den bere harri **azkar** seriosetan. Michel Oronoz

Esan ere esan nizun, auzokideen bilerara joan aurretik, dutxa **azkar** bat hartua nuela; eta, presagatik edo, prakak janzterakoan hain zuzen, hantxe geldituko zitzaidala, praka barruko azpilduraren batean trabaturik. Josetxo Azkona

Ondoren, Errege defuntuaren organoak honela banatu dira, berak desio zuen bezala: bihotza Uxueko Andramarigana; beste tripaki guziak Orreagako Amagana, eta gorputz **azkar** barrenustua, egungo oilaskoak merkatura bezalatsu, Iruñeko Andramari Erreginagana. Patziku Perurena

Bi hegaldi egin behar izan ditut Torinotik Triestera heltzeko, eta bien arteko hegazkin-aldaketa **azkar** bat Erromako Fiumicino aireportuan ordu erdi bateko tarte doian. Anjel Lertxundi

Fitxak hartu eta begiratu **azkar** bat egin nien. Edorta Jimenez

Zabalkunde arin eta sustraitze **azkar** honen arrazoiak agerikoak dira: soinuaren ozena, urrundik entzuteko modukoa; erabilgarritasun handia, hala batetik bestera eramateko nola beso arterako. Koldo Izagirre

Haren erretinak sentikortasun handikoa behar zuen, eskujokariena bezain bizkorra, kartak mugimendu **azkar** batez nola pikatzen dituzten edo nola dauden paratuta istant batez baino ikusi ez eta karta jakin bat asmatzen baitute, ingurukoak ezertaz ere ohartu gabe. Karlos Zabala

Andres sinetsita zegoen terapeutika **azkar** bat klinikari on baten eskuetan baizik ezin zitekeela onuragarria izan kasurik gehienetan, eta klinikari ona izateko, horretarako dohain bereziez gainera, nahitaezkoa zen oso praktika luzea izatea. Josu Zabaleta

Osasuntsua bada nork bere sustraiekiko lotura **azkar** bati eustea, ez ote dira sustrai horiek arriskutsuak izaten lurraren azaletik igo eta zuhaitzaren ageriko aldea ito nahian inbaditzen dutenean? Joxan Elosegi

Goi-goian ginenean begiratu **azkar** bat egin nuen ingurura... eta aski izan nuen. Koro Navarro

Helikopteroak dituzue, molde askotako kanoiak, ibilgailu **azkar** eta bizkorrak. Xabier Montoia

• **2** *adlag* laster; sendo.

Bolatokira hurbildu eta **azkar** etortzeko esango diot zure ahizpari. Xabier Paya

Zabar eta **azkar** esaten hasita, esango nuke hiru garela urte, mende eta milurte aldaketa bizitzeko ohorea izan dugun belaunaldiak: zaharrena, gazteena, eta nire moduan, dagoeneko gazte ez eta oraindik zahar ez garenon heldu-larriona. Joxerra Garzia

Noski, badituk **azkar** gizentzeko ematen dizkieten produktu horiek guztiak. Pablo Sastre

Egun onak izan dira: **azkar** bizitzeko edozein gauza izan da zilegi. Sonia Gonzalez

Aldaba bai, berreskuratu dugu, baina elizako bataiarria... **azkar** lapurtu zuten! Edurne Elizondo

Atea itxi bezain **azkar** esan zidan: "negatibo eman du". Joseba Urteaga

Kapitainak, jakina, **azkar** asko bidaltzen zituen hondarrezko hobira, eta azkenik, hain zen izugarria haren izena, hondartzan armadura distiratsuaz azaldu, eta etsaiak oro ihesi hasten baitziren itsasoan sartuz, gehienek igeri ez zekitela ahazturik. Felipe Juaristi

Pentsamenduak hain datozkizu **azkar**, non takigrafia inprobisatu baten poderioz baizik ezin dituzun harrapatu; eta agian ezta horrela ere. Iñaki Iñurrieta

Egunak ikaragarri **azkar** igarotzen dira. Eskarne Mujika

Gero, aparkalekutik **azkar** demonio atera, eta ezkerretara jo dute kale zabal batetik, gurpilak erre beharrean. Patxi Iturritegi

Kamioiaren zoru altutik jauzi egin beharra zegoen; ama lurrera erori zen, eta **azkar** zutitzeko oihu egin zion soldadu batek; gero, soldaduz inguratuta, gizonak eta emakumeak banatu egin gintuzten. Juan Kruz Igerabide

Hortaz, eta inork gehiagoko galderarik ez egiteko, **azkar** pagatu eta aldegin zuen. Matías Mujika

Makila hartuko banu **azkar** asko joango hintzateke, bai, lanera! ". Bernardo Atxaga

Ingelesek **azkar** lan egiten zuten, antza. Alberto Ladron Arana

Donostiaren gaineko zerua batetik bestera gurutzatzen zuen hodei luze bikoitzaren marra morea, gorri bihurtu zen **azkar**, baita laranja distirant ere gerora. Txillardegi

Azkar hasi ziren biak ere. Xabier Etxabe

Mundu iluna **azkar** ari zen limurtzen, eta haizea ozen zebilkion belarrietan kantari. Agustin Otsoa

Denok gara Eros, hots, ez arras **azkar**, ez absolutuki ahul; ez jakintsu ezta ezjakin ere. Askoren artean

Baina filologoa **azkar** asko ohartzen da ez dela hori bere saila, etsai-lurrean sartu dela ustekabean. Iñaki Segurola

"Dabid, lanparak jaitsi behar ditugu, **azkar**!", agindu nion orduan zakar, eta bera arduratu zen lanparak garaiz aldatzeaz. Patxi Zubizarreta

Oso **azkar** ibili behar du orain. Antton Olano

Lehen eguna oso **azkar** igaro zen eta oheratu nintzenean errezuak egin gabe lokartu nintzen; oso nekatuta nengoen. Juan Martin Elexpuru

"Presa-garaiak direnean, karabanak ere **azkar** ibiltzen dira", pentsatu zuen Alkimistak, Oasira ehunka gizakume eta animalia nola heltzen ziren begiratzen zuen bitartean. Xabier Aranburu

Azkar ibili beharko zuen, bai, lehenbailehen bueltatu nahi bazuen. Pedro Alberdi

Eta **azkar**, etenaldirik barik, irakurtzen niharduenaz ohartu barik, erresultatu eta kontsiderazioen zerrenda luzea errezitatu nuen. Edorta Jimenez

Azkar ari zen zahartzen Konrad. Xabier Olarra

Eguzkia **azkar** eta gogoz aurkeztu zen. Fernando Morillo

Baina gauzak **azkar** zihoazen beheraka. Koro Navarro

- Ez zekiat zehazki zertaz ari haizen, baina zerbait konkreturik gura izanez gero, eska egik lasai, lasai baina **azkar**. Josu Landa

Zutikako pertxeroa boterearen sinbolo zen, **azkar** eta tentuz lan egiteko oroi-zentzagarri bat. Harkaitz Cano

"Jantzi **azkar**", esan zidan; eta nik hankartera eraman nituen eskuak, hankartea galtzazpiz ongi estalia banuen ere. Inazio Mujika Iraola

-Benetan **azkar** ibili zara, bai - erantzun zuen aitak, alabak ulertu ez arren mendekua erakusten zuen kortesiaz -. Julen Gabiria

Bizigarrien salerosketaren monopolioaz gabeturik, barne-gatazkek akiturik, kanpoko inbasioek suntsiturik, **azkar** galdu zuen Italiak europar ekonomian zuen lehentasuna. Koro Navarro

Haiek ere ezustean harrapatu zituzten, sei-zortzi begiraleak, eta eskuz eta hankaz **azkar** eta gogorki lotu ondoren, kapitaina eta alfereza euren aurrean azal zitezela eskatu zuten, pistolen mehatxupean. Karlos Linazasoro

Eta, hain esan zizkidan **azkar** izen haiek, aurrekoak ondokoari kosk egingo balio bezala, non hasi orduko bukatu baitzuen aitak zerrenda. Joan Mari Irigoien

Baina berak ez du **azkar** jaten, ez horixe. Jokin Muñoz

Hala ere, ez zuen etsi; niri ez etsitzeko eskatzen zidan bezala, berak ere eutsi egiten zion ahaleginari; belarri fina baitzuen, **azkar** jarri zen ahoskerarik aldrebesenak ere ulertzera, eta, azkenean, jende guztiarekin aise mintzatzeko gauza zen. Juan Kruz Igerabide

Euskaraz ere badira, edo egin daitezke horrelakoak: zinez eta benetan, ase eta bete, estu eta larri, huts eta soil, xehe eta xume, idor eta lehor, txukun eta garbi, adi eta erne, arin eta **azkar**, emeki eta poliki, higuina eta nazka, izua eta ikara, zikin eta lohi... Koldo Zuazo

Azkar nahi zuten egitekoa burutu eta horretarako ez aski hiriko ofizioak. Aingeru Epaltza

Prostatas batu zitzaion eginbehar premiazko hartan, eta Ugatzak berak, nitaz ahazturik, azken begiratu bat bota ere gabe, pistola bere zorroan sartu eta buztinezko zoruan ordura arte nire oharkabean egondako tranpatxo baten ate irekitzeari ekin zion, Aita Zaindariak! **azkar**, goazen hemendik, agintzen zuela, oihuka. Jon Alonso

Ohi bezala, **azkar** erantzun zidan. Bernardo Atxaga

Eta, haiek gibelat egiten ikusi orduko, hazi egin nintzen, halako tailuz, non ahul, eskas eta uzkur zena egin baitzen, begi herts-ireki baten bitartean, ausart, **azkar** eta kuraios. Joan Mari Irigoien

Baten batek txantxaren bat egin orduko, ordea, **azkar** asko ezkutatzen zitzaion irribarrea. Joxe Austin Arrieta

Oso **azkar** hasi ziren gauzak nire burutik iragotzen: gorabehera horrengatik ez nuen neure aingeru zaindariaren promozioa arriskuan jarri behar. Joxan Elosegi

-Bai, agur, eta **azkar** sendatu. Xabier Mendiguren Elizegi

3 *azkar-azkar*

Ofizialek ikaragarri gozatzen zuten eta itxura egiten zuten **azkar-azkar** ari zirela puntadak ematen soinekoei, hasperen haiekin ez gorritzeko. Pello Lizarralde

Azkar-azkar zihoan almadia, Angarako ur lasterrak herrestan zeramatzan izotz pusken artean. Karlos Zabala

Baina mugimendu hori **azkar-azkar** egin banuen ere, Lakatosek antz eman zion. Matías Múgica

Gizona barrez dago, urrutira begiratu du, **azkar-azkar** errezitatu du, aski saiatua: Monika Etxebarria

Orduan, hatzak **azkar-azkar** mugitu ditu eta figura bat agertzen hasi da, behin alde batera eta hurrengoan bestera. Pello Lizarralde

Hildakoak erraietan utzi dizun arrastoak, berriz, harritu egiten zaitu, ikusirik nola erasan dizun sekuentzia **azkar-azkar** batek. Anjel Lertxundi

-Ez, ez, ez! - esan zuen ia oihuka, hitzak **azkar-azkar** ahoskatuz. Aitor Arana

Inor ez zen asko hitz egiten ari, Hermione Granger izan ezik, hura **azkar-azkar** xuxurlatzen ari baitzen sorginkeriei buruz ikasitako guztia, zein beharko ote zuen bere buruari galdezka. Iñaki Mendiguren

Bazkari legetxo bat egin **azkar-azkar**, eta berriro neure gelara, arratsera arte. Txillardegi

Sartu gehiago mihia, andere, ez miaztu klitoria bakarrik; barneratu mihi likits hori umetokiraino: hazi-isurketa **azkar-azkar** eragiteko modurik hoberena da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Santxo Panzak, fraidea lurrean eroria ikusi zuenean, **azkar-azkar** asto gainetik jaitsita, joan hara, eta fraide-janzkerak kentzen hasi zitzaion. Patxi Ezkiaga

Utz nazak bakean!, esateko gogoa irentsi eta trenera itzuli nintzen, kafea **azkar-azkar** hartu eta gero. Anjel Lertxundi

Egongelako guztiak beraiei begira zeuden; Ron poltsari birak ematen hasi zen, artean Crookshanks hari gogor helduta zegoela, eta Scabbers goiko muturretik irten zen **azkar-azkar**... Iñaki Mendiguren

Eta liburuzainaren begiratupean orria **azkar-azkar** fotokopiaturik, bere mahaira itzuli da. Patxi Zubizarreta

4 *azkar baino azkarrago*

Txaplik utzitako ondarea **azkar baino azkarrago** xahutu zuten, eta Mikelek berak egindako letrarekin izugarrizko kantua asmatu zuten. Unai Iturriaga

Zalgirisen gorakada hori, ordea, **azkar baino azkarrago** moztu zuen Baskoniak. Berria - Kirola

Elkarren ondotik **azkar baino azkarrago** igarotzen ziren argiek liluratua, beiraren bestaldeko munduari berria iritzi zion, irribarretsua, dirdaitsua. Patxi Zubizarreta

-Esaiok Tilcuateari **azkar baino azkarrago** behar dudala bera. Juan Garzia

Adjib **azkar baino azkarrago** hazi zen, egun bakoitza berarentzat hilabete bat, eta hilabetea urtea bailitzan. Patxi Zubizarreta

Azkar baino azkarrago, eskuz idatzitako orri bat utzi du haren apunteen gainean. Patxi Zubizarreta

Nik ez nuen ezer ulertzen, ulertu beharrik ere ez, beharbada, zeren eta **azkar baino azkarrago** berotu baitzitzaidan ostera galdara... Joan Mari Irigoien

5 *azkar baino lehen*

Baina, eztula eta dirua ezkutuan gordetzeko zailak diren bezala, maitasunaren sua ere estalgaitza izan ohi da, eta **azkar baino lehen** sumatu zituen norbaitek gaztetxo haien arteko pasioak sortzen zituen ketxoak, eta mizto gaiztoen pozoiarekin joan zen etxekoandrearengana. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bere beharretan zirela eta itzultzeko **azkar baino lehen**. Hasier Etxeberria

Baina izena duen guztia omen denez, **azkar baino lehen** esan beharko du Athleticek zein izen izango duen futbol zelai berriak Berria - Kirola

Iragarleak nahi bezala, heldu zen zurrumurru hau erregeren belarrietara, eta honek **azkar baino lehen** agindu zuen aska zezatela berehala astrologoa J.M. Olaizola "Txiliku"

6 *azkar batean*

Hondartzan etzateko garaia heldu zaie **azkar batean** boluntarioei. Berria - Kultura

Hala, erresistente bihurtzeko duen arma bakarra galtzen du birusak: geneak **azkar batean** mutatu eta erresintete bihurtzeko aukera. Berria - Gaiak

Azkar batean makurtu nintzen. Anjel Lertxundi

Azkar batean harengana bihurtu eta, erreakziorako betarik eman gabe, beste ostikada bat jo zion saihetsean eta zulora bidali zuen, aurreneko gerlariaren lagunartera. Joanes Urkixo

Ezin izan zuenez **azkar batean** egin, birao batekin bota zuen harrika. Anton Garikano

Geraldi atzea eman eta autoan sartu zen **azkar batean** eta tente-tente eseri zen kuxin gris argien kontra. Mirentxu Larrañaga

Gutariko norbaitek artean eldarniozko irudipenik bazuen, **azkar batean** uxatu zitzaion, Etapleseko gure entrenamendu-esparru hagitz zabala estreinakoz ikusi orduko. Mirentxu Larrañaga

Azkar batean, egoerak ematen zidan bigarren aukera horretan, asturuaren babesak eskaintzen zidan lasaitasunez esan nuen: Lander Garro

Utzi -erantzun dio **azkar batean**, ezohiko egoera horri amaiera jarri nahian-edo. Jokin Muñoz

7 *azkar usteko*

Herri guztietan dago iturri eta lerdo bana, eta turista talde guztietan egon behar du **azkar ustekoak**, jakina. Urtzi Urrutikoeetxea

Berak erakutsiko zizkion erakustekoak tabako saltzaile **azkar usteko** hari. Jon Alonso

Horrela ez zegok lan egiterik, eta hik ondo asko dakik; beraz, ez hadi **azkar ustekoa** izan, eta esaidak nolakoa den etxearen aurre aldea edo aurkitzeko balio dezakeen beste zerbait. Rafa Egiguren

Eta zuen lagun hau legea hausten harrapatu zuten, telefonoa eskuetan zuela, **azkar ustekoa** nonbait tipoa, harrapatuko ez genuelakoan, txoroa. Karlos Linazasoro

Ez, badira **azkar-ustekoak** zera esaten dutenak: "Aldatu egin behar dugu egoera hori". Jose Morales

Gozo-gozo, baina gainerako ikasleak aise entzuteko moduan, zera esan dio ikasle **azkar usteko** hari. Joxerra Garzia

8 *azkar ustekoa izan*

Horrela ez zegok lan egiterik, eta hik ondo asko dakik; beraz, ez hadi **azkar ustekoa izan**, eta esaidak nolakoa den etxearen aurre aldea edo aurkitzeko balio dezakeen beste zerbait. Rafa Egiguren

9 *begi mugimendu azkar* *(corpusean ez dago; ETCn **9** agerraldi)*

Lokuma arinetik hasi eta lo sakoneraino doa zikloa, eta horren faseetako bat REM **Begi Mugimendu Azkarra** deiturikoa da; begiak mugimendu azkarrak egiten ditu, eta ametsak garbiak dira. ETC-prentsa

Gutxi gorabehera, jaioberriaren loaldiaren erdia irregularra da; **begi-mugimendu azkarrak** izenez ezagutzen da hori, eta gorputza nahiko aktibo dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Egoten diren zalantzak ikusteko adibide bat: REM musika taldea baina BMA, **begi mugimendu azkarra**, proposatzen da lo-fasea izendatzeko, eta azkenik "Rem", ingelesezko "roentgen equivalent man" esapidearen laburdura denean. ETC-entziklopedia

Ametsa lo egitean izaten diren irudi, pentsatze eta sentimenduak dira, **Begi Mugimendu Azkarrarekin** hertsiki lotua dagoena. ETC-entziklopedia

10 *bide azkar*

Irizpide hori jarraituz, UPNk eta CDNk osatu gobernuak heldu den astelehenean onartuko du lege proiektua eta Legebiltzarrera igorriko du '**bide azkarretik**» tramitatu dadin. Berria - Ekonomia

Ekialderantz abiatuko naiz **bide azkarrenetik**, Hilen Bidezidorretatik. Agustin Otsoa

-Gogoratzen zarete nola behin galdetu zenidaten, zuk Léak, ea ez zegoen **bide azkarragorik** matematikan; Talesen teoremaz ari ginenean, hain zuzen... eta felaren kontuaz...; eta zuk, Jonathan, ea zertarako balio zuen matematikak? -galdetu zien Ruche jaunak. Jon Muñoz

Ezin baitzen ezkondu nire nahia oherakoan egin genuen **bide azkarregiarekin**. Hasier Etxeberria

Bushek harro eman zuen atzo datua eta bere herrialdeko ekonomia "**bide azkarrean**» dagoela azaldu zuen. Berria - Ekonomia

11 *igarotze azkarreko autobus* *(corpusean ez dago; ETCn **43** agerraldi)*

Igarotze azkarreko autobusa edo IABa (ingelesetik, "Bus Rapid Transit", "BRT" laburtua) garraio publikorako autobus sistema bat da, diseinu, zerbitzu eta azpiegitura bereziak dituena sistemaren kalitatea hobetzeko eta atzerapenak eragiten dituzten arazo arruntenak saihesteko. ETC-entziklopedia

Avignongo **igarotze azkarreko autobusaren** 2. linea sarean aurreikustako bi lineetako bat da. ETC-entziklopedia

12 *irakurketa azkar*

Bitxia egiten zait irakurtzea Batzordeak Justizia Auzitegira jo duela (Egonkortasun) Ituna ren **irakurketa azkarrago** eta malguagoa egiteagatik, norbaitek Romano Prodik iaz esan zuenean Ituna ergelkeria zela, nahiko malgua ez zelako. Berria - Ekonomia

Irakurketa on batek bi faktore biltzen ditu: irakurketa ona eta **irakurketa azkarra**. Askoren artean

13 *irrati eztanda azkar* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Irrati-astronomian, **irrati eztanda azkarra** (edo "FRB") oso energia handiko fenomeno astrofisiko bat da. Berez batez beste milisegundo batzuk dirauen irrati-pultsua da, jatorri ezezagunekoa. ETC-entziklopedia

14 *ordenazio azkar* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Quicksort (batzuetan **ordenazio azkarra** edo partizio-truke bidezko ordenazioa deitzen dena) hainbat balio ordenatzeko algoritmo eraginkorrenetako bat da. ETC-entziklopedia

15 *pinu azkar* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Intsinis pinua, insignis pinua, pinu beltza edo **pinu azkarra** (izen zientifikoa: "Pinus radiata"; dagoeneko ez da erabiltzen "Pinus insignis" izen zientifiko zaharkitua) 30-40 metroraino hazten den pinua da. Jatorriz kaliforniarra da, eta asko erabiltzen da lurrak basotzeko. Laster hazten delako erabiltzen da hainbeste; izan ere, urte gutxi batzuen buruan hainbat metroko garaiera eta zentimetro ugariko zurtoina hartzen du. ETC-entziklopedia

Pinu beltza edo **pinu azkarra** ere deitzen zaio. ETC-prentsa

16 *test azkar* *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)*

Emaitza positiboa bada, badaezpada, beste **test azkar** bat egiten da, eta prozesu histopatologikoa ere abian jartzen da. ETC-prentsa

Salbuespen horien artean, 24 hilabete baino gehiagoko behiei ere gaixotasunaren **test azkarra** egiteko erabakia aipatu zuen. ETC-prentsa

Drogen kontsumoa antzemateko **test azkarra** salgai dago farmazietan. ETC-prentsa

Zabalgunean aztertutako hogeita hamar dorreetatik lauk positibo eman zuten **test azkarrean**. ETC-prentsa

Martxoaren 1ean hasita, hiesaren **test azkarra** egingo dute Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 20 farmaziatan. ETC-prentsa

Gehitu udazkenean hasiko da eskaintzen hiesaren **test azkarra** egiteko aukera. ETC-prentsa

Jaurlaritzak beste 30 botikatan baimendu du GIBaren **test azkarra**. ETC-prentsa

Bestalde, Donostiako Onkologikoak koloneko minbizia garaiz diagnostikatzeko **test azkarra** eskaintzen hasiko da. ETC-prentsa

Birusa detektatzeko **test azkarrak** hiesaren aurkako GKEen egoitzetan eta farmazietan egin daitezke. ETC-prentsa

Test azkarra egitera deitu dituzte arrisku praktikak izan dituztenak. ETC-prentsa

Test azkarrak diseinatzean, hainbat faktore hartzen dira kontuan: egokitasuna, azkartasuna (minutuak, ELISA edo immunotransferentziarako behar diren orduen edo egunen ordez), gordeta luzaro izateko aukera, eramangarritasuna, aplikatzeko erraztasuna eta interpretatzeko erraztasuna. ETC-zientzia, zuzenbidea

Test azkar batzuk eskuragarri daude; hala ere, aukerak daude kutsakorrak izateko test horietan emaitza negatiboa lortuta ere. ETC-entziklopedia

Gaur egun, badira zenbaki lehenen **test azkarrak**, baina faktorizaziorako **test azkarrak** falta dira. ETC-entziklopedia

17 *zementu azkar* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Baduzue **zementu azkarrik**? ETC-literatura, saiakera

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

ahal bezain azkar (16); **azkar aldatu** (8); **azkar aldatzen** (7); **azkar alde egin** (8); **azkar ari** (26); **azkar asko** (53); **azkar atera** (12); **azkar azkar** (51); **azkar baino** (34); **azkar baino azkarrago** (15); **azkar baino lehen** (18); **azkar bat egin** (19); **azkar batean** (32); **azkar bukatu** (9); **azkar egin** (50); **azkar egiten** (15); **azkar eman** (9); **azkar erantzun** (14); **azkar eta ondo** (10); **azkar gertatu** (12); **azkar hartu** (16); **azkar hasi** (11); **azkar hori** (7); **azkar ibili** (40); **azkar ibili behar** (8); **azkar ibiltzeko** (7); **azkar ibiltzen** (8); **azkar igaro** (7); **azkar iritsi** (10); **azkar izan** (8); **azkar jaitsi** (7); **azkar jantzi** (7); **azkar jarri** (11); **azkar joan** (26); **azkar mugitu** (11); **azkar mugitzen** (14); **azkar pasatzen** (7); **azkar samar** (8); **azkar sartu** (8); **azkar utzi** (7); **azkar zabaldu** (16); **begirada azkar** (15); **begirada azkar bat** (9); **begiratu azkar** (20); **begiratu azkar bat** (14); **behar bezain azkar** (7); **beti azkar** (13); **bezain azkar** (145); **bizi eta azkar** (9); **dena oso azkar** (8); **denbora azkar** (8); **etorri azkar** (7); **gizon azkar** (13); **goazen azkar** (7); **hain azkar** (98); **hasi bezain azkar** (7); **hori azkar** (12); **horren azkar** (12); **izugarri azkar** (10); **keinu azkar** (10); **mugimendu azkar** (24); **mugimendu azkar batez** (13); **musu azkar** (9); **musu azkar bat** (8); **nahi bezain azkar** (16); **nahiko azkar** (9); **oso azkar** (146); **zein azkar** (17)

azkarki emendatu (15); **azkarki funditua** (9); **azkarki funditua izan** (7); **azkarki fundituak** (9); **azkarki goiti** (7); **azkarki hedatu** (7); **azkarki kanbiatu** (12); **bazterrak azkarki** (8); **hori azkarki** (11); **jendea azkarki** (17); **jendetzea azkarki** (7)

azkarra da (62); **azkarra izan** (42); **azkarra izan behar** (8); **azkarra izan da** (7); **azkarra izan zen** (7); **azkarra izango** (9); **azkarra zen** (22); **bezain azkarra** (15); **biziki azkarra** (7); **erantzun azkarra** (7); **gizon azkarra** (19); **hain azkarra** (10); **jokalari azkarra** (9); **joko azkarra** (10); **oso azkarra** (56); **oso azkarra izan** (11)

askoz azkarrago (16); **askoz ere azkarrago** (11); **azkar baino azkarrago** (15); **azkarrago ari** (12); **azkarrago aritu** (8); **azkarrago egin** (12); **azkarrago egiten** (11); **azkarrago joan** (14); **baino azkarrago** (136); **gero eta azkarrago** (35); **orduan eta azkarrago** (8); **tximista baino azkarrago** (7); **uste baino azkarrago** (9); **zenbat eta azkarrago** (9)

azkarragoa da (10); **azkarragoa izan** (17); **baino azkarragoa** (31)

baino azkarragoak (9)

azkarrak dira (16); **azkarrak izan** (11); **erro azkarrak** (12); **mugimendu azkarrak** (8); **oso azkarrak** (21)

azkarregi da (7); **azkarregi egin** (11)

ahal den azkarren (15); **ahalik azkarren** (8); **ahalik eta azkarren** (135); **albait azkarren** (10); **den azkarren** (15)

ahalik eta azkarrena (10); **azkarrena izan** (24); **izan da azkarrena** (12); **izan zen azkarrena** (65); **zen azkarrena** (68)

izan ziren azkarrenak (20); **ziren azkarrenak** (20)

mugimendu azkarrez (7); **pauso azkarrez** (12)

---

azkaratar *(orobat **azkaratiar**)* *izond/iz* Azkaratekoa, Azkarateri dagokiona; Azkarateko biztanlea.

Mixel Galant **azkaratar** eta Beñat Gimenez angeluar kontseilari orokorrak, Ramuntxo Camblong, eta bertze hautetsi zonbait oraino. Herria

Basa Nabarreko kortean parte hartzen zuen, Akizeko bikario nagusiarekin, hau zelarik Eiherabide **Azkaratarra**, Donaixtiko erretora. Xipri Arbelbide

Sortzez **azkaratiarra**, han emana zuen bere biziko parte bat Haizpian etxetiar. Herria

Hoberenak izan Pierrette Harguindeguy eta Mayi Oronoz, **Azkaratiarrak**. Herria

Bidean aurkitu duten René Gueracague **azkaratarraren** laguntzarekin. Herria

---

azkaratiar ik **azkaratar**.

---

azkargarri *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *izond* azkartzen edo adoretzen duena. ik **bizkorgarri**; **indargarri**.

Zoria madarikatzen zuen, norbait jo nahiko zuen; eta, bere etsipenaren **azkargarri**, sendi zuen gainean halako laido bat, desohore bat bezala. ETC-literatura, saiakera

Baina errudun sentimendua bada ere gehien azpimarratu dena, eta **azkargarria** da, Jesusek behin gaixo batengatik esan zuen ez zegoela gaixo beraren edo bere gurasoen bekatuagatik eta bai Jainkoaren egintzak ager zitezen. ETC-prentsa

Aktibazio-maila, zigor fisiko edo indarkeria gisa agertzen bada, jokabide horrek jarraipena izan dezake, katarsikoa eta **azkargarria** gerta daiteke. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azkarkeria *iz* azkarrari dagokion ekintza, gaitzesgarritzat markatua.

Bere zuhurtasunarekin herri barbaroen indarra hautsarazten du, eta bere esku indartsuarekin hegoaldeko herrien **azkarkeriak** makurrarazten ditu. Santiago Iruretagoiena

Alu hark **azkarkeria** egin zuen, goizean orratza aldatzera ez jaikitzeagatik, bezperan aldatuta utzi. Pako Aristi

---

azkarki *adlag* azkartasunez, azkar, gogorki.

Milafrangar guztientzat berri ona baitzen, eta guretzat ere bai; Garaziren aita, hezueriak **azkarki** jota, gero eta nekezago ibiltzen baitzen. Txillardegi

Elena han zegoen eni **azkarki** lotua, itsuski tinkatzen ninduela. Janbattitt Dirassar

Eguzkiak **azkarki** berotu eta maiz baratu behar, ura edan dezazuen. Xabier Montoia

Gauzak **azkarki** aldatu dira Euskal Herri xaharrean. Piarres Aintziart

Beraz ikusgarria **azkarki** aldatu da, nahiz oraingoan jokolariak sartzen diren pilota lekuan beren indarren osoki jabe. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mr. Jamesek **azkarki** ikuskatu zituen argazkiak eta bereizi zituenak Angieri pasatu zizkion. Iñaki Zabaleta

Atea irekitzeko **azkarki** pusatu zuen. Ramuntxo Etxeberri

Klimatizazioaren zurrumurrua bere aitaren zurrunga bezain **azkarki** entzuten zen. Ramuntxo Etxeberri

Eta ibarreko bake geldiak eta etxeetako kolore leun xarmagarriek **azkarki** hunkiturik, betiko gelditu naiz Baztan ibarraz maitemindurik. Txillardegi

Arrain freskoarekin, eta gero olioa biziki berotu, **azkarki**! Menane Oxandabaratz

Préchacq-eko deserriko osaba Praixku zoritxarrekoaren kondairaz oroitu nintzen orduan, ezin **azkarkiago**. Txillardegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azkarki aipatzen (3); **azkarki aipu** (5); **azkarki ari** (3); **azkarki arizan dira** (4); **azkarki beheiti** (3); **azkarki bildu da** (3); **azkarki emendatu da** (4); **azkarki emendatzen** (4); **azkarki etorri** (3); **azkarki funditu** (6); **azkarki funditua izan** (7); **azkarki fundituak** (9); **azkarki gibelerat** (3); **azkarki goiti** (7); **azkarki goratu** (3); **azkarki handitu** (5); **azkarki harrotu** (3); **azkarki hedatu da** (4); **azkarki jo** (3); **azkarki jotzen** (4); **azkarki kanbiatu da** (3); **azkarki kariotu** (5); **azkarki kolpatua** (3); **azkarki mintzo** (3); **azkarki sustatu** (3); **azkarki ttipitu da** (3); **azkarki ttipitzen ari** (3); **batzu azkarki** (6); **bazterrak azkarki harrotzen** (3); **bera azkarki** (3); **beraz azkarki** (3); **berriz ere azkarki** (3); **bildu da azkarki** (4); **dela azkarki** (4); **dira azkarki** (6); **direla azkarki** (3); **du azkarki** (5); **egun hotan azkarki** (3); **etxeak azkarki** (3); **gauzak azkarki** (3); **hori azkarki** (11); **ibili da azkarki** (3); **jendea azkarki** (17); **jendea ere azkarki** (4); **jendetzea azkarki emendatu** (3); **zuen azkarki** (4)

---

azkarkiro *adlag* azkartasunez, azkar, gogorki.

Berandu nabil -Angie **azkarkiro** zutitu zen. Iñaki Zabaleta

---

azkarragotu, azkarrago(tu), azkarragotzen da/du *ad* azkarrago gertatu.

Gaztaroko irakurketez gogoratze honek eraman zuen Raimundo Silva, ideien errekurrentziaren bide ezagunen bitartez, historia bizkorrago iraganeraztea, denbora **azkarragotzea** bere esku zegoela pentsatzera. Jon Alonso

Txistu sarkor batek oroimenen haria eten eta lokomotora eta bagoiaren arteko lehen talka iragarri zuen, estreinako bapore bufada, eta apurka suabeagotzen eta **azkarragotzen** zihoan trenaren abiada. Josu Landa

Eta horrela pobretzea **azkarragotu** eta hizkuntza ahuldu egiten da. Xabier Olarra

---

azkarri ik **h**azkarri.

---

azkarrian *adlag* oparo, ugari.

Garazin antzerkiaren kulturak oraino **azkarrian** segitzen du. Berria - Kultura

---

azkartasun *iz* azkarra denaren nolakotasuna.

Desfase burokratiko horren kontra ez dago ezer egiterik, borreroak halako kasuetarako **azkartasun** gehiago makina bat aldiz eskatu duen arren. Karlos Linazasoro

Zuk ematen al diozu zaldiari **azkartasuna**, zuk janzten ote lepoa ile-zurdaz? Elizen arteko biblia

Legeak, hutsunea betetzeko, egundoko gogortasunez egin dira, eta egundoko **azkartasunez** betearazten dira. Iñaki Iñurrieta

Azkartasunez eta prestu lan egin dezaten adina bai behintzat. Karlos Linazasoro

Gauza guztiek **azkartasun** berdinez mugitu behar dute, pisuan ezberdinak izan arren. Xabier Amuriza

Niri iruditzen zitzaidan ni bezalako morroi bat halako neska eder eta bitxi batekin enamoraturik egoteak garbiki erakusten zuela ene **azkartasun** eta gustu ederraren maila altua. Joxemari Iturralde

Heriotza bala baten **azkartasun** urrikalgarriak eragin beharrean, itomen luze eta anker baten esku etorriko zitzaigun, beraz. Aingeru Epaltza

Costak ez zuen onartuko hain erraz zuzenketa akastuna izatea **azkartasunaren** mesedetan. Jon Alonso

Nire **azkartasun** erlatibo hartaz jabetu nintzenean ere ez nuen harrotzeko arrazoi handirik, beste hamaika gauzatan besteak baino traketsago nintzela gogoratu bainintzen aldi berean. Xabier Mendiguren Elizegi

Hain handia zen lortua zuen gorputzaren eta espirituaren arteko adostasuna, hain handia elkarri obeditzeko **azkartasuna**, non, espiritua santutasun gorenaren atzetik lehiatzen zenean, haragiak ez baitzion eragozpenik jartzen, baizik eta aurretik joaten saiatzen baitzen. Askoren artean

Nesketako batek **azkartasunez** eman zion arrapostua: [...]. Patxi Zubizarreta

Faraik, presaturik, **azkartasunez** eten zuen:[...]. Patxi Zubizarreta

---

azkartto *(orobat **azkarto**) adlag/izond* laster; lasterra.

Itxuraz, berrogoi bat urteko gizon **azkartto** bat. Herria

Igandean, lehergailu **azkartto** bat zartarazi dute ugarteko hiriburuan, hezkuntza minixteritzaren konduko etxe batean, erakaskuntza zerbitzuen ikuskari nagusiaren egoitzan. Herria

Makur handiak, bi bunba **azkartto** leherturik, batto prezeturtegian, bestea aduanako bulegoen aintzinean. Herria

Berehala erranik hobe, Arambururen eguna zen igandean 7-0 hasirik beti aintzinaldea atxiki baitute Rene Dermit **azkarto** batekin. Herria

---

azkartu, azkar(tu), azkartzen da/du *ad* indartu, bizkortu, sendotu, lastertu.

Presoak etxera!" oihuak **azkartu** dira. Txillardegi

Taupadak **azkartuko** zaizkie, ziurra da hori. Berria - Kirola

Goizean, epaitegira eraman zituzten une beretik, bihotz-taupadak **azkartu** zitzaizkion eta arnasestuka hasi zen. Jose Morales

Hortakotz behar dugu euskara atxiki, begiratu galtzerat utzi gabe, eta ahal badugu oraino **azkartu** eta hedatu. Xipri Arbelbide

Ekonomia **azkar** dadin, ez du nahi sosa alferrik egon dadin! Herria

Arnasa **azkartu** zitzaion, sudur hegalak zabaldu. Fernando Morillo

Gaixotu bezala egiten naiz orduko minaren akordu hutsarekin:_Iarritu egiten zait barrua, bihotza **azkartu** eta adimena ilundu. Hasier Etxeberria

Anfibioen desagerketa asko **azkartu** da. Berria - Gaiak

Bihotza are bortitzago **azkartu** zait, kasik zentrifugatzen ari den garbigailu baten pare. Patxi Zubizarreta

1788an, Esgueva ibaiak ezustean harrapatu zuen Valladolid hiria, izotz urtze bizi bat medio, elur urtzeak uholdeak **azkartu** zituelarik. Pello Zabala

Pausoa **azkartu** eta aurrerantz jarraitu du pasilloan. Harkaitz Cano

Bien bitartean, Nikolasek zaldiaren ibilera **azkartu** zuen. Karlos Zabala

Hori bera uste eta sinetsi zuen Garzellik, berak egin zuelako selekzioa mendatea gogortu bezain pronto erritmoa **azkartuta**. Berria - Kirola

"behin eta berriz **azkartu** da lan erritmoa, produkzio katean eta langileen osasunean izan ditzakeen ondorioak kontuan izan gabe. Berria - Ekonomia

Oraino ere Bogota kapitaleko gobernuak onartu du amerikano armadak bere indarra **azkar** dezan heien erresuman, soldado gehiagorekin eta bere laguntza haundiagoa ekarriz harat droga trafikuaren kontra batetik eta beti satorra bezala barnean duten gerillaren kontra. Herria

Zeren urean eta aire xumean zehar erortzen den guztiak pisuaren arabera **azkartu** behar baitu erorrera. Xabier Amuriza

Azkartu egin ziren zurrumurruak, eta hitz zantarrak ugaldu. Txillardegi

Ibarbiak uste du Tabako Fabrikaren erosketak **azkartu** egin duela Filmategiaren lekualdatzeko erabakia. Berria - Kultura

Bolondresen artean, **azkartu** egin ziren arrunt, Madriletikako armada ofizialaren kontrako amorru zornatua eta borroka latza. Txillardegi

Villafranca del Bierzo hirira noa bide hauek ahantzixeak nituen artean eta berriz Caminoaren zati bat oinez egiteko gogoa **azkartu** baizik ez dit ahanzte horrek. Piarres Aintziart

Oxigeno gehiago lortzearren, arnasa azkarrago hartu behar izaten da eta erregai gehiago erretzeko odolak azkarrago ibili behar izaten du -bihotzaren taupadak **azkartu** eta sendotu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erritmoa **azkartu** dut. Jasone Osoro

Azkartu egiten dela arnas hartzea, ateratzea moteldu egiten den neurrian. Lourdes Oñederra

Zangoak **azkartu** ahalean, moteltasun ezti bat nagusitu zaio gogoan. Aingeru Epaltza

Sartzeko, borta lodi bat, burdinez **azkartua**. Michel Oronoz

Urratsa **azkarturik**, minutu gutxiren buruan Gurijan ziren. Patxi Zubizarreta

Lur berri batzuei buruz atera ginen, ontsa gostarik bildu esperientzia batek **azkarturik**, hain segur baliatuko zitzaiguna oraino ikusten ez genuen etorkizunean. Marzel Etxehandi

Bainan idazleak, gaia gisa hartarat mugaturik, ez ditu xeheki aipatzen azken 70 urtetako aldaketak, turismoa aintzina **azkartuz** joan baita, kasik sobera behar bada, askoren iduriko segurik. Herria

Ordutik, egunez egun **azkartuz** joan da mugimendua. Berria - Ekonomia

Andrések alde eginda irakurtzen hasi zarenetik, eguna **azkartuz** joan da. Lourdes Oñederra

Bihotz taupadak **azkartuz** zihoazkion. Xabier Mendiguren Elizegi

Kim ugazabak kalera bidali izanak **azkartu** egin zuen berez hartu behar zuen erabakia. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abiada azkartu (3); **azkartu dela** (3); **azkartu dira** (4); **azkartu dituzte** (3); **azkartu du** (4); **azkartu egin behar** (3); **azkartu egin da** (3); **azkartu egin zen** (5); **azkartu egin ziren** (4); **azkartu egiten** (6); **azkartu ere** (3); **azkartu nahi** (4); **azkartu zen** (5); **azkartu ziren** (3); **azkartu zitzaion** (4); **azkartu zuen** (7); **bera azkartu** (3); **berriz azkartu da** (3); **bihotza azkartu** (4); **biziki azkartu** (3); **emendatu eta azkartu** (3); **ere azkartu** (4); **erritmoa azkartu** (3); **harremanak azkartu** (3); **hedatu eta azkartu** (3); **hori azkartu** (4); **oraino azkartu** (3); **pausoa azkartu** (3); **pausoak azkartu** (3); **polliki azkartu** (3); **prozesua azkartu** (4); **taupadak azkartu** (5)

azkartuko dela (4); **azkartuko direla** (3)

azkartuz doa (3); **azkartuz doala** (3); **azkartuz joan da** (6); **azkartuz joanen** (3); **beti azkartuz** (4); **handituz eta azkartuz** (4)

harremanak azkartzea (3)

azkartzearen beharra (3)

azkartzeko gisan (3); **batzuen azkartzeko** (3); **hori azkartzeko** (4); **prozesua azkartzeko** (5)

asko azkartzen (3); **azkartzen ahal** (5); **azkartzen ari da** (5); **azkartzen ari den** (3); **azkartzen da** (3); **azkartzen duen** (3); **berriz azkartzen** (3); **galera azkartzen** (3); **nola azkartzen** (3)

---

azkartxo *adlag adkor* azkar.

Argazki horietako batean azaltzen nintzen ni, bederatzi edo hamar urteko neskato kankailu, zangoak **azkartxo** luzatuak, lelotu samarra itxuraz. Joxan Elosegi

Ur handia zegoen eta **azkartxo** jaisten zen zubirantz. Koldo Biguri

-Azkartxo adosten zarete zuek, jainkogabe horiek, apaizjale liberalekin! -hots egin zuen ozenki On Camillok. Koldo Biguri

Hari begira jarri nintzen orduan, eta, burua mantso-mantso mugituz, noiz eulia noiz zebuaren kopeta izaki, loak hartu ninduen **azkartxo**. Josetxo Azkona

---

azkartzaile *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* azkartzen duena. ik **bizkortzaile**; **indartzaile**.

Baldin eta mendi eskualde baten itxura basatia eta handitasun ikaragarria, egiaz, mendien eta bailaren alternantzia harrigarri eta atsegin bateraino leuntzen badugu, baldin eta ipar klima baten laztasuna, halaber, freskotasun arintzaile eta **azkartzaile** bateraino leuntzen badugu. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azkartze *iz* indartzea, bizkortzea, sendotzea, lastertzea.

Frantziak baduela halako ahul aire bat eta azkartu behar duela, hori ere errepikatu du, erran gabe **azkartze** hori nola egin ditakeen. Herria

Bat-bateko **azkartze** eta balaztadak entzungo dituzte berriz. Berria - Kirola

Ez dut uste horrenbesterainokoa denik:_lehendik ere, gero eta leku handiagoa hartzen ari zen eskola gure bizitzan; prozesuaren **azkartze** bat besterik ez zen hortaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Azkartze bat nabaritu dut kutxa torazikoko dinamoan. Koldo Izagirre

Etorkizun ezezagunari buruz, indar izpiritualez **azkartze** handia izan zen. Marzel Etxehandi

Azkartze eta ahultze. Herria

---

azkarxeago *adlag/izond* apur bat azkarrago.

Hondartzako paseotik joan dira, mantso mantso hasieran, Gabi ohitu zedin, eta **azkarxeago** gero. Jokin Muñoz

Lehen alferkeriari egozten banion **azkarxeago** ez ibiltzea, egunean orri bateko batez bestekotik ez aurreratzea, orain uste dut (edo hala diotsot neure buruari, kontsolagarri) barneko jakituria batek ezarria dudala martxa geldo hau. Xabier Mendiguren Elizegi

Medikuek aurreikusi didaten bizialdi laburrari akabera **azkarxeagoa** emana izango diot. Xabier Mendiguren Elizegi

Baliteke Izeta izatea **azkarxeagoa**, baina Donostiako saioan asko sufritu zuen. Berria - Kirola

---

azkatazun ik **askatasun**.

---

azkatu ik **askatu**.

---

azkazal *(ETCn **794** agerraldi; orobat **azazkal** ETCn **1.744** agerraldi eta **atzazkal** ETCn **13** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **azazkal** eta **azkazal** ageri dira)* **1** *iz* gizasemeak eta zenbait animaliak, hatz muturren gaineko aldean duten xafla adarkizkoa. ik **azazkal**, **atzoskol**.

Suaren aurrean eseri zen, zigarro bat hartu eta **azkazal** baten kontra jo zuen, eta ingurura begiratzen hasi zen. Xabier Olarra

Moztu nituen **azkazalak** eta depilatu hankak. Joxan Elosegi

Esku bateko **azkazalak** garbitzen hasten da aita beste eskuko azkazalen laguntzarekin. Anjel Lertxundi

Padreren atzamarretako **azkazalak** etorri zitzaizkion gogora, okertuak, handiak, zikin beltza barruraino sartua beti. Jon Maia

Igandean **azkazalak** mozten dituanak ezkardak izain ttu beatzetan. Pello Zabala

Bizarraren gauzen poltsan sartu zituen xaboia eta xukadera, eta hurrena konketa gaineko xaboiaren platera eta basoa eta **azkazalak** moztekoa eta Maxineren betile bihurritzekoa ere sartu zituen. Koro Navarro

Llum pantailara begira geratu da, pentsakor, **azkazalak** hozkatzen dituen bitartean. Antton Olano

Amarenean, ordea, bilo bakar batek ere ez zuen markaturiko ilearen lerroa gainditzen, **azkazalak** ezin txukunago lakatuak eta bekainak lapitzez zehaztuak edukitzen zituen. Joxan Elosegi

Lasai egon eta eutsi, egin behar da orain, **azkazalak** haragi mamitan sartu, garrasi egin baino lehen. Josu Zabaleta

Gero berriro itzuli zen, horma ozta-ozta ukituz berriro; eta arinki hazkatu zuen, haur batek **azkazalaz** hazkatuko lukeen bezala. Josu Zabaleta

Sorginak **azkazalaren** puntarekin gogor sakatu zuen nire ezkerreko esku-ahurraren erdialdean. Iban Zaldua

Onenak hatz-ma mien labirinto itxurako aztarnak eta **azkazalen** arrastadak dituzten argazki zaharrak dira. Harkaitz Cano

Korok, Zumetak margotutako **azkazalak** dituen andereak eraman gaitu. Pako Aristi

Luzeak eta latzak:_behatz eta atzamarretako **azkazalak** dorpeki errotik ateratzetik hasita. Pello Zabala

Adaska baten muturrarekin **azkazaletako** zikinkeria garbitu du. Eider Rodriguez

Azkazaletako beltza ere joan zitzaion ia ur bero haiekin. Jon Maia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gero berriz ireki zituen, hatz luze haiek erakutsiz, **azkazal** motz eta zuri haiek. Jon Muñoz

Etengabe batera eta bestera higitzen ari zen ohe barruan, **azkazal** zorrotzak esku-azpietan sartuz. Lopez de Arana

Giharretsua eta indartsua da, ahaltsua dirudi eta, luzeegiak izan gabe, **azkazal** luze samarrak dauzka. Aitor Arana

Itsusi ikaragarria zen, beltza, iharra, luze-luzea, eta estutua bezala, giharrek berebiziko indarra zuten itxuraz, pergamino bilakatutako larruzko hede batez bildurik zeuden barrutik eta kanpotik; **azkazal** horiak, estuak, hatz muturretan zeuden oraindik; milia batetik zuen hark guztiak gaizkilearen usaina. Josu Zabaleta

-Jainkoarren! -xuxurlatu zuen gizonak, **azkazal** hori luzeekiko esku zikin batez orbain sakon zurien eta gorrien gainetik haztaka-. Lopez de Arana

Umeak bere **azkazal** beltzekin bustitzen zuen ogia gorringoan. Jon Maia

Une hartan bertan, presaka alde egin zuen kabinatik ile tindatua eta **azkazal** eskarlata-koloreak zituen emakumeak. Koro Navarro

Eta han karrika erdian, beren arropak **azkazal** luze eta zainduek urratuz, bakoitzak bere bekatuen aitortza egin zuen. Felipe Juaristi

Izan ere, **azkazal** luze eta obalatu bat hautsi berri duenaren narritadura saihestezina ulertzekoa baita. Jon Alonso

Hizketan ari zela, jostaketan aritzen zen haiekin, begirik kentzen ez ziela, **azkazal** distiratsuetako ispiluan bere burua ikusteko eginahaletan ari balitz bezala. Matías Múgica

Marijoren kajoian topatu du **azkazal** tristeak biziberritzeko margo gorri xuabe bat. Paddy Rekalde

Lainezek **azkazal** zikinei eta zauriei erreparatu die. Pello Lizarralde

3 (hitz elkartuetan)

Azkazal pare bat emango nituzke barruan zer daukan jakitearren. Harkaitz Cano

Suaren aurrean eseri zen, zigarro bat hartu eta **azkazal** baten kontra jo zuen, eta ingurura begiratzen hasi zen. Xabier Olarra

Horren ordez urragoma papurrak diruditen atomotxo koloregabeak sartu zaizkizu **azkazal** barruetan. Eider Rodriguez

Sikiera, bazen txerren edo deabruari lana ematea pentsatzen zuenik ere:_Ostiraletako **azkazal**-mozkinekin, gurdien gurpilak egiten aritzen omen da Txerren. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azkazal bat** (3); **azkazal luze** (3)
> **azkazalak ere** (3); **azkazalak hozkatzen** (3)

---

azkazi *iz* ahaidea.

Aitaren Biarnoko **azkaziak** ongi gobernatu ziren enekin. Itxaro Borda

Aitak, Germenak salbu anai-arrebek, **azkaziek**, herriko adiskide haboroxenek Iker deituz ohoraturiko Laurendi kaiola baten ilunpearen aztaparretan mutxitzera utzi zuten. Itxaro Borda

Berrogei mila libera luzatu zizkion Eva Atharratzeko bere **azkazien** baserrira laguntzeko, berehala. Itxaro Borda

Jendakiak, ahaideak, **azkaziak** eta auzoak traputzen zihoazen, zangalatrabatzen edanaren ondorioz. Itxaro Borda

Azkazi guztiak hil dituxu, lurraldeak abandonatu, bazterrak zikindu, etxeko supazterra itzali -ailedi ez osotoro iraungia-. Jose Angel Irigaray

Izan ere, aberriarentzat garai gaiztoan, ez nik jardun dezaket gogo barez, ez Memmiotarren **azkazi** gailenak huts egin diezaioke, halako unean, osasun komunari. Xabier Amuriza

---

azken *(ETCn **646.115** agerraldi)* **1** *ord* denboran, tokian, mailan, beste guztien atzetik dagoena edo gertatzen dena. ik **atzen**.

Udaren **azken** alderako eguna da, eguzkitsua, beroa. Agurtzane Juanena

Nola itzulikatu **azken** horren ihesak sorrarazten duen zirrara, bere koldarkeria mozorrotzen duenean eserleku batez profitatzeko aitzakia ahulaz? Xabier Olarra

Borzgarren zezena eta **azkena** Villagrandeko dukeari berari egokitu zitzaion, eta ez naiz honetan luzatuko, ez bainituzke zure pazientzia eta pairua agortu nahi. Joan Mari Irigoien

Umetako argazki bat, **azkena** ikusi dudana, ez dut gorde. Xabier Etxabe

Lehenbizikoa marguldurik dago jada, **azkenak** seda balitz bezalako distira du; ez da, ordea, trapu tindatu bat baino. Juan Garzia

Zeure bi gutunak berriz igortzen dizkizut, eta baldin zuhurra bazara, horiek izanen dituzu **azkenak** une zoriontsua iragan arte. Jon Muñoz

2 (adizlagun gisa)

Ni naiz lanera **azken** iritsia, mahats-biltzaileen atzetik hondarrak hartzen dituena bezala. Elizen arteko biblia

Gero, **azken** paratu nuen, noizbait moldatzekoen zerrendan. Aingeru Epaltza

Thiéracheko gizasemeak **azken** ailegatuko dira, hamaiketako tranbian. Monika Etxebarria

3 (izen baten ezkerrean) ik **azkeneko**.

Geroztik eskuarki etorri zen gizon hura, bere mozorro jantzirik gabe, auziaren **azken** ekitaldietan eta alegazioetan egoteko. Josu Zabaleta

Baina gizakien eta aingeruen **azken** atarramentuari buruzko gaia geratzen zait. Jenaro Garate

Gogoratu nintzen nola, goizeko **azken** ikastorduaren amaiera aldera, iruditu zitzaidan, gelako leihotik, aterki gorri bat zihoala eguzkiak kiskalitako jolastokian barrena. Juan Kruz Igerabide

Lasterka joan ginen harengana eguneko **azken** berriak ematera, baina hark aurpegian itxi zidan atea eta ez nuen ezer esaterik izan. Pello Lizarralde

Ahotsak emozioz dardara egiten diola esango ditu **azken** hitzok. Josu Zabaleta

Hori da bere **azken** argazkia. Pako Aristi

Azken begiratua egin zion gelari. Koro Navarro

Nire haurdunaldiaren **azken** egunetan, inbidiaz begiratzen nien pausorik inportanteena uste nuena emana zutenei. Arantxa Iturbe

4 (zenbatzaile zehaztu baten ezkerrean)

Bestalde... jakin dute Jone **azken** sei hilabetean lanean ari dela. Pablo Sastre

Zure senarrak eskatutakoa gogo onez betetzeko asmotan, hemen doazkizu **azken** hiru hilabeteok gure zerbitzura egin dituen Gabriela gazteari buruzko nire gogoetak. Arantxa Iturbe

Lehenengoen indarra datza atzetik **azken** ehun urteotako dotrina eta pentsamendu ekonomiko antolatua izatean. Iñaki Heras

Dena den, orain SSetan dauden anitz, bereziki **azken** bizpahiru urteotan sartu direnak, armadan baino azkarrago igotzeagatik edo botere politiko handiagoa lortzeagatik sartu

dira. Alberto Ladron Arana

5 *iz* bukaera, amaia.

Ez izan bekatariaren zori onaren inbidiarik, ez baitakizu zein izango den haren **azkena**. Elizen arteko biblia

Baina horien **azkena** egintzen araberakoa izango da. Elizen arteko biblia

6 ***azken afari***

Nire ondoan dagoen gazte batek komentario irrigarri bat egin du **Azken afariko** koadroan bizkarra emanda dauden apostoluak seinalatuz. Berria - Kultura

Atzo goizaldean bukatu zen lau orduko aurreneko bilera, eta alderdiak ados jarri ez eta gauerako egin zuten bigarren hitzordua hainbat hedabideren hitzetan, "**azken afaria**» izango zen atzo gauekoa. Berria - Mundua

Azken afaria: hona nire gorputz-odolak! Elizen arteko biblia

Azken afaria: apostolu bakoitzaren aurpegia gertatzen ari denari buruzko ikuspuntu narratzaile bat da. Anjel Lertxundi

Jesusek **Azken Afaria** ospatzen duenerako, auskalo, baina XIII-XIV mende izan ditzakete Pazkoa udaberriko lehen ilbetean ospatzen. Pello Zabala

Oraindik ere gogoan dut Leonardo Da Vinciren **Azken Afariarena**. Javi Cillero

Mendizabal ez zihoan Algortara San Nikolas elizan **azken afariaren** elizkizunean parte hartzera, seguru asko igandeko Aberri Egunari begira ariko ziren zer edo zer prestatzen, honezkero ez zaigu axola zer. Xabier Mendiguren Elizegi

Grial hori edalontzi bat zen, Jesusek **Azken Afarian** erabilia; Jose Arimateakoak gorde zuen ontzia, eta bertan bildu zituen Jesus gurutzean zintzilik zegoela bihotzetik eroritako odol tantak. Juan Kruz Igerabide

Jesu Kristo gure Jaunak, ezarri zuena, ororen aburuz, bere **azken afarian** apostoluei erran zielarik: Egizue hau ene oroigarri!, hots, hau egiteko boterea har ezazue, hori baitzen sagaratzeko boterea. Piarres Xarriton

7 ***azken agur***

Bermeon egin zaio **azken agurra**. Herria

Oihane Errazkini **azken agurra** emateko deitutako nazio manifestazioa arratsaldeko 17: 30ean abiatuko da Bulebarretik. Berria - Euskal Herria

Andereñoaren **azken agurra** zen. Mirentxu Larrañaga

Azken aldiz lagundu dit Nasserrek hotelera, eta **azken agurra** egin diogu elkarri, hunkigarriena. Jon Arretxe

Izan ere, Amaliak, 70 urte bete eta geroxeago, idatziz jakinarazi zion bere abokatuari, hil eta gero, Probidentzia izeneko beilatokian nahi zuela **azken agurra** jaso. Josetxo Azkona

Nire ustez, behintzat, poema luzeko azken bertsoa Rimbauden **azken agurra** da. Anjel Lertxundi

Abuztuko asteazken horretan, bederen, eliza jendez ihaurri zegoen, emakumeari **azken agurra** ematera joana. Aingeru Epaltza

Berri on horrekin etorri zen bere ahaide eta adikideer **azken agurren** egitra. Xipri Arbelbide

Duela berrogei urteko saio eta txapelketetan, ohikoa zen lehen edo **azken agurrean**, aurrez aurreko entzuleei diosala egiteaz gain, irrati-entzuleei ere egitea. Andoni Egaña

- Hoa arotzarengana eta gurpiletan irristagailuak ipintzeko eskatu - esan zuen Txitxikovek, eta hirira joan zen, bera bakarrik eta **azken agurra** egitera inoren etxera inguratzeko asmorik gabe. Jose Morales

Hura izan zen haren **azken agurra**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Azken agurra egin nahi nion Yvani. Joxan Elosegi

Eta hitz labur horretan asko zegoen: **azken agurra**, urrutiko deia, guztien kontra - are bere kideen kontra ere - borrokatzeko erabaki irmo eta ikaragarria, eta kexa, kexa motela. Jose Morales

Musu baten hotsa izan zen **azken agurra**. Paddy Rekalde

Hemen galdeginen dautzut **azken agur** bat... Menane Oxandabaratz

Sinbadi egin **azken agur** hura azkena izan ez zen moduan. Edorta Jimenez

8 ***azken-aitzineko*** *izond* azken-aurrekoa.

Sakelatik gogoaren kontra atera, eta paltoko paparrean ipinirik, aise kezkagarriagoa iduritu zitzaion hurrengo atalaren, hots **azken aitzineko** zatiaren irakurtzen hasi zen. Elena Touyarou

Urratsa luzatuz, abiadura zalutuz, **azken aitzineko** herrixkari hurbilduko naiz bai, ondarrean. Piarres Aintziart

9 ***azken arnasa*** *iz* hil aurreko unea. ik **agonia**; **hilzori**.

Bazekien orain halabeharra eta arrisku guztiak puntu batean biltzen zirela: biharamuna giltzarria izango zen, azken ahaleginaren ala hondamendiaren eguna, **azken arnasarena**. Agustin Otsoa

Ene maiteok, ilunabar horretan, neure gorputz honi su emanen diot, ea behingoz argi pixka bat ematen duen, eta gero, hego-haizearen eskuak barreia eta sakabana ditzala nire errautsak eta maitasun-keak Azpilgo zoko-moko guztietan, ene herriaren **azken arnasarekin** nahas daitezen. Joan Mari Irigoien

Orduan hizkuntza, bere **azken arnasetaraino** kuxkurturik, sinbolo huts bihurtua geneukake: bandera baten edo egunkari baten pare bihurtua; hots, oihala, papera: merchandising nazional hutsa. Iñaki Segurola

10 ***azken arnasa eman*** hil.

Egun batzuk hil edo biziko lehia gogorrean aritu eta Herioren aurpegi herbala azazkal luzeez zauritu ondoren, berak ere **azken arnasa eman** zuen azkenik. Felipe Juaristi

Azken arnasa eman zuenean, Adeodato haurrak negarrari ekin zion marruka eta guk aginduta isildu zen. Imanol Unzurrunzaga

-Libyako nomadek, heleniarren arabera lurperatzen dituzte hildakoak, nasamonek izan ezik; hauek eserita lurperatzen dituzte, **azken arnasa ematean** eserrarazi eta ahoz gora hil ez daitezen zainduz. Patziku Perurena

Eta **azken arnasa eman** zuen. Juan Garzia

11 ***azken arnasan egon*** hilzorian egon.

azken arnasan nago! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

12 ***azken arnasetan***

"Hasieran esan dudana errepikatuz amaitu behar dut", dio Agirrek bere hitzaldi luzearen **azken arnasetan**. Edorta Jimenez

Ume-umetako erreflexuak izaten dira, gaitzaren **azken arnasetan** ere ohikoak. Berria - Gaiak

Gero berriz, Historiaren **azken arnasetan**, suge-larru onaz zeharo atzendu eta Latex izeneko jainkoaizunaren lagun egin du merkatuak emakumea. Iñaki Segurola

Eguna joan eguna etorri, barrena janik **azken arnasetan** nago ni. Jon Muñoz

Berak ere badaki **azken arnasetan** dagoela. Xabier Etxabe

13 ***azken arnasetan egon*** hilzorian egon.

Eguna joan eguna etorri, barrena janik **azken arnasetan nago** ni. Jon Muñoz

Berak ere badaki **azken arnasetan dagoela**. Xabier Etxabe

14 ***azken-aurreko*** *izond* azkenaren aurre-aurretik dagoena.

Itsasoratu aurretik bere "adiskideari" buruzko **azken aurreko** albistea jaso zuen, edo hala iruditu zitzaion behintzat. Iban Zaldua

Florent, berriz, Mondétour kaleko izkinan gelditu zen, ezkerraldeko **azken aurreko** etxearen parean. Karlos Zabala

Azken-aurreko tranbia da; azkena hemendik ordubetera iraganen da. Monika Etxebarria

Niri, ordea, gure gaurko eskola sistema ikusita, **azken aurreko** puntua etortzen zait behin eta berriz gogora. Joxerra Garzia

15 ***azken-aurren*** *ord* azkenaren aurre-aurretik dagoena.

Igor Elortza, Amets Arzallus, Jesus Mari Irazu eta Maialen Lujanbiok Udaberriko Bertso Saioen zikloko **azken aurrena** egingo dute gaur 13: 00etan Santutxuko Karmelo

plazan. Berria - Kultura

Izan ere, lehen txandan aritu ziren lau traineruetatik bik bukatu zuten lehen postuan, baina beste biek azken eta **azken-aurren** egin zuten. Berria - Kirola

16 *azken auzi*

Hobe da neure aurrean damu izatea eta mina edukitzea, maizago orroituz heriotzaz eta **azken auziaz**. Patxi Altuna

17 *azken batean* bitarteko arrazoi edo kontuak alde batera utziz.

Lotsatuta nengoen, **azken batean** nire errua baitzen, baina ezin jakin pentsamendu hori hain garrantzitsua zenik beretzat. Urtzi Urrutikoetxea

Azken batean badik grazia pittin bat. Juan Garzia

Aurrerago aipatu den Entropiaren lege eztabaidaezina, **azken batean**. Fernando Morillo

Azken batean, bai baitira keinu batzuk gustatzen zaizkigunak, beste noizbait nonbait ikusiak ditugulako agian. Joxe Austin Arrieta

Baina **azken batean**, amarena errepikatzen dute, berriro amaren barrura itzultzea baita nolabait maitearekin elkartu nahia. Markos Zapiain

18 *azken beltz* hondamendia.

Daitekeen **azken beltzena**, bai, baina buru-botatzailea burujabe eta bere hitzaren, erabakiaren eta askatasunaren jabe dela erakusten duena. Iñaki Segurola

Hala ere, adierazpen horiek denak a posteriori jaso dira, Txikiaren **azken beltza** ezagutu ostean.Eguneroko urratsak zuzen eramateko ongi kudeatutako ahalkea beharrezkoa zen eta ahalkearen erabat galtzea **azken beltza** zitekeen. Xabier Mendiguren Elizegi

Kopakoari **azken beltza** emateko bidean, neure izena bertze norbaiten ahoan aditu nuen. Aingeru Epaltza

19 *azken beltzean* azken finean.

Hau da, zer duen **azken beltzean** erakusten. Iñigo Aranbarri

Azken beltzean, izen xixtrin batekiko atxiki-nahia (eta geronen izenarekiko ahantzi-nahia) da amodioaren indar kosmiko guztia. Iñaki Segurola

Ohartu al zarete Demokrazia izeneko señorita honi, **azken beltzean**, nork eusten dion zutik? Patziku Perurena

20 *azken bigarren*

Musu bakoitza azkena zen, eta gero **azken bigarrena** zen. Jon Muñoz

Beste bat (alde honetan jende askok jotzen du liburu horretara) letrazko labirinto hutsa da, baina **azken bigarren** orrialdeak Oi denbora hire piramideak dio. Juan Garzia

Hala, esaten da frantsesezko azentua azken SILABAN dagoela; txekierazkoa, berriz, hitzaren lehen silaban; polonierazkoa, **azken-bigarrenean**; latinarena ere **azken-bigarrenean** (zenbait baldintza betetzen bazituen), eta abar. Lourdes Oñederra

21 *azken buru* bukaera.

Azken buruan, nahi nion neure amodioa frogatu, ez ordea berea ase. Jon Muñoz

Ekintza zibil eta kriminal guztiak egintza dira **azken buruan**. Iñaki Iñurrieta

Ez dakigu, **azken buruan**, nola pentsazen duen, nola taxutzen duen mundua, nola den marrazteko eta kantatzeko gai. Xabier Olarra

Ez dator alferrik gure mesede hori, **azken buruan**, latinezko mercesetik, adierazten baititu ordaina, saria, soldata, prezioa eta holakoxe ezgauzak. Iñaki Segurola

Ez ote du, **azken buruan**, izakera bakarzale eta antolagaitza zuritzeko mozorrorik egokiena? Patziku Perurena

Ordaindu, korridorearen **azken buruan** zegoen eserlekuan eseri eta jakako patrikan sartu nuen eskua. Harkaitz Cano

Politika-urte baten historia da, **azken buruan**. Koldo Biguri

22 *azken buruan*

Areago, guztiz funtsezkoa iruditu zitzaion hedabide modernoen ikaskuntza, irakaskuntza eta azterketa, **azken buruan**, hedabide horiek teoria eta praktika pedagogikoaren zati dira. Txema Ramirez de la Piscina

Historialariek onartzen dute gaur egun, guhaurk genioen bezala, XX. mende hastapenean Europako erresuma zaharretan, Frantzian, Espainian, Italian, Ingalaterran eta Alemanian nagusitu zela nazionalismoaren sukarra eta hori izan zela, **azken buruan**, I. Mundu Gerlaren kausa garrantzitsuena. Piarres Xarriton

Irakurlearekin erabili beharreko lilura estrategian aski trebatua egotea da, **azken buruan**, kazetariari eskatzen zaiona. Iñigo Aranbarri

"Borondate politikoa» erakusteko, **azken buruan**. Berria - Ekonomia

Azken buruan, emaitza txarrak justifikatzeko makina bat argudio daude futbolean. Berria - Kirola

Sistema daktilologikoan ez dago aurpegiko espresiorik, eta **azken buruan** horixe da pertsonaren barne egoera adierazten duena. Berria - Euskal Herria

Eguneroko bizitzan legetxe, **azken buruan**, den-dena hildakoei loreak erostean geratzen da. Berria - Kultura

Azken buruan, Europan energia nuklearrarekiko dependentzia handien eta jarrera baikorren duen herrialdea dugu Frantzia. Berria - Gaiak

Mineral preziatua zen arraina, **azken buruan**. Harkaitz Cano

Haurride gehienak **azken buruan** zerbaitez bizi behar zela zioen. Jose Angel Irigaray

Analisiaren **azken buruan**, normalean, trebetasuna maila handi batean punpezia nabarmena dela aurkitzen da. Xabier Olarra

Azken buruan, ez du nirekin hitz egiteko gogorik. Iban Zaldua

Azkenean, burmuinak - desioaren **azken buruan** - hainbeste espero izan dugun agindua bidaltzen du. Luis Elberdin

Esku bat esku bat da, **azken buruan**. Harkaitz Cano

23 *azken buruko*

Biharamunean lauretan agertu zen, bost otarrain, hiru botila xanpain eta bi **azken-buruko** zekartzala. Oskar Arana

Azken buruko mailegatzailearen auzia. Koro Navarro

Eskuak ziren haren bereizgarri, ordea, pikorta kafe-kolore argiz zipriztinduriko beso zuri belaxken **azken buruko** bitxi haiek; esku luze ikaratiak, beren azazkal kako eta guzti. Mirentxu Larrañaga

Arima kordegabetzen zihoakion, eta elurra entzuten zuen unibertsoan barrena ilaunki erortzen, eta erortzen, ilaunki, beren **azken buruko** jaitsiera bezala, bizi eta hil guztien gainera. Irene Aldasoro

Azken buruko ezagumena era horretakoa baldin bada, orduan bizitza gutariko askok uste baino enigma handiagoa da. Joseba Sarrionandia

Odol hotzean tiro bat jo eta gero are odol hotzagoan **azken burukoa** jo zioten. Edorta Jimenez

24 *azken egun*

Azken eguna zetorkiolarik, bere seme Joseri deitu eta esan zion: - Maite banauzu, izan nirekin onbera eta leiala: ezarri eskua nire izterpean eta hitz emadazu ez nauzula Egipton ehortziko. Elizen arteko biblia

Hauxe da nire Aitak nahi duena: Semea ikus eta harengan sinets dezanak betiko bizia izan dezala; eta neuk piztuko dut **azken egunean**. Elizen arteko biblia

Hurrena, udaberriko edo Garizumako tenporak kokatu orduko, beste eginkizun berezi bat bereganatuko dute: tenpora-egun hauetako **azken egunean**, larunbatean, apaizgintza edo apaizgintzarako pauso edo ordena santuak emango dira: Garizumako lehen asteko koarta-tenporetan justu. Pello Zabala

Azken eguna gainean zuela ikusi zuenean, bi urte lehenago Jainkoaren errebelazioz adierazi zitzaionez, hautatu zituen anaiei deitu zien, eta, goitik adierazten zitzaion eran, banan-banan bedeinkatu zituen. Askoren artean

Eta galdetzen dizut, halaber: zinez ote dago beirazko ontzi horretan ene etorkizuna, jaun André, eta zinez edirenen ote dut, halatan, neure **azken eguna**, edo **azken egunak** edirenen ote nau ni? Joan Mari Irigoien

Gau hartan iduritu zitzaion haren **azken eguna** ez zela gehiago hain urrun. Eneko Bidegain

Emakume Abertzaleen Batzako hizlari ospetsuenetariko bat izan zen 36ko gerraren aurretik eta **azken egunera** arte abertzale suharra izan da. Berria - Euskal Herria

Edo agian, "etxetik egotzi" aurreko "**azken egunean** bere ondoan izateko"; hori bera beste noizbait ere esan du. Urtzi Urrutikoetxea

Horrexegatik erosi diot hil-oihal bat, eta **azken eguna** iritsi arte toki seguru batean gordea dut. - Segidan, osaba Kamilengana jiraturik -: Ez nizun jakinarazi. Patxi Zubizarreta

Herentzia nire anaiarena eta zurea da, zuek zaindu duzue osaba **azken eguneraino** ... Karlos Zabala

Azken eguna izan zitekeen, beti izan zitekeen **azken eguna** bizitzaren eta heriotzaren arteko mugan ibiltzen ginenontzat. Lander Garro

-Ez ote da mila aldiz hobe **azken egunera** arte neskazahar bizitzea, zama zurbil hori korkoitzera eraman gabe? Zer egingo huke horrenbesteko senar batekin? Nolatan lotsa hazake gizaseme horietakoren batekin ezkondurik ez egoteak, hain bikaina eta olinpiarra izaki, planeta honetako maisu-lan nagusia izaki? Joxan Elosegi

Eta ez zizun eman **azken egunak** bakean bizitzeko aukerarik ere. Arantxa Iturbe

Behintzat aitaren ondoan eman nitian bere **azken egunak**. Paddy Rekalde

Eta horrek bizipoza ematen dit, pozño txiki bat bederen **azken egunei** aurre egiteko. Karlos Linazasoro

Horrek denboraren ezabatze bat dakar, ordea: bizitzaren zentzua **azken eguna** iritsi arte erabakitzerik ez badago, itxoite hori kenduta zentzu berri bat pizten da, denboraren iragan arruntarekin zerikusirik ez duena. Pako Aristi

Jartzen ginen aulkiren batean, itsasontziak ikusten genituen, eta guri eleka entzuten genuen ama, ene oroitean iduri bat baino ez den emazteki noble eta saindua, baina **azken eguna** arterainokoan distiratuko duena ene gogoan eta ene bizitzan. Koldo Izagirre

25 *azken eman* *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Alborakuntzan **azken eman** ditugunetatik hasita, bistan da juntaduran berdin aukerakoa dela aditz-isiltzera eta lokailuetara jotzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azken eman dugun adibidean txertatuko dugu halako bat, egoki baitator katean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Udaka eta neguka gertakari bakoitzaren ordena kronologikoari jarraituz, lazedemondarrek eta beren aliatuek atenastarren inperioari **azken eman** eta Pireoko Horma Luzeez jabetu ziren unera arte. ETC-literatura, saiakera

26 *azken epai*

Edozein izanik ere gizadiaren **azken epaia** Mendebaldeko Zibilizazioari buruz bere historiaren atal modernoan, garbi zegoen Mendebalde modernoko gizakia markaturik zegoela zitalkeria ezabaezinezko bi krimen egiteagatik. Iñaki Mendiguren

Kikildurik joango dira beren bekatuen kontu ematera, beren gaiztakeriak izango baitituzte salatari. Fedegabeak eta zintzoak **azken epaiaren** aurrean. Elizen arteko biblia

Datozen egunetan **azken epaia** jakinaraziko dute. Berria - Euskal Herria

Zure ustez, gaurko neurriek zerbait adierazten dute **azken epaiari** begira? Berria - Harian

Espainian eman diren epaietan ez da zuzen-zuzenean landu gai hori, baina publiko egin den **azken epaian**, iazko abenduan, Auzitegi Gorenak kalte-ordain handia onartu du gurasoentzat. Berria - Gaiak

Ez baduzu onartzen, berriz, eta ez baduzu jartzen zure hitz guztien gainetik, zure egintzen eta bizitzaren gainetik, testigantza horrek berak zure aurka erabiliko luke **azken epaia**. Joan Mari Lekuona

Bide hau urratu nahi dugu orain, **azken epaia** jaso ezin duen gatazka hau konpontzearren. Ibon Uribarri

Azken epaia eman berri zuen, pentsatu zuen haren eskua pixkana erori zenean, altuera handi hartatik bioleta eta asfodelozko koroa bat erortzen utzi balu bezala, astiro hegaldatu zena lur gainean amaitu arte. Anton Garikano

27 *azken epaiketa*

Beraz, testigantza hori orain entzuten baduzu, eta bertan esandakoa bete, barrutik eta kanpotik bete ere, salbatuko zara **azken epaiketatik**. Joan Mari Lekuona

Erantzuteko, Platonek Gorgias elkarrizketan agertzen den mito batera jotzen du, diskurtso eskatologiko batera: **Azken Epaiketan**, dio Sokratesek, jainkoek biluzirik ikusiko gaituzte, garen bezala, gorputza desagerturik, arima agerian utzita. Askoren artean

Azken Epaiketa hurbil delarik, filosofoak eta teologoak ez dira ongiaren eta gaizkiaren arazoa azaldu nahian dabiltzan bakarrak, gizaki guztioi dagokiguna baita: jakitun izan ala ezjakin. Felipe Juaristi

28 *azken esku*

"**Azken eskua** berea izaten zen gehienetan. Berria - Kultura

Lan hori egiten genuen tigre larru itxurako oihal-etxola batzuei **azken eskua** emaiteko: 4 oihal-etxola puska elgarri botoinaturik lau gizonen aterbe izan zitezkeen. Marzel Etxehandi

29 *azken fin*

Eta halakoa izan zuen heriotza eta azken **fina**. Joan Mari Irigoien

Sarezainen atzaparretan, gaixo xoriek, hor dute beren azken **fina**. Herria

30 *azken finean* *adlag* azken batean, azken buruan, azken unean.

Azken finean, ezin eman ziezaiokeen surik; hori zen kontua, eta hori, gazteari inporta zitzaiona. Ramon Saizarbitoria

Zure maila berreskuratuko duzu, jende ondratuen maila; mundu guztia bezala biziko zara, **azken finean**. Karlos Zabala

Azken finean, ez zuen gehiago arrazoirik egoteko. Elena Touyarou

Demokratek eta biolentoek, **azken finean**, alderdi biek ideal demokratikoak dituzte: ideal judukristauak. Patziku Perurena

Azken finean, bi ehiztari ziren, lurralde berean, erreserba berean, ehizan zebiltzanak. Karlos Zabala

-Azken finean berdin zaidan hik gaizkiletzat hartzea. Anton Garikano

Manex mutil ona da, **azken finean**, aitaren jenio txarra badu ere. Lander Garro

31 *azken glaziazio* *(corpusean ez dago; ETCn **144** agerraldi)*

Azken glaziazioa, Pleistozenoren amaieran, duela 110.000 eta 10.000 urte artean izandako azken glaziazioa izan zen, egungo Laugarren Aroko glaziazioaren barnean gertatutakoa. ETC-entziklopedia

Azken Glaziazio Gorena (23.000-22.500) amaitzear zegoela, Solutre kultura agertzen da Europan. ETC-prentsa

Azken glaziazioaren ostean, mahatsondoa, eta konkretuki Vitis Vinifera generoa, Mediterraneoko herrialdeetara zabaldu zen, Itsaso Beltzetik. ETC-prentsa

Izan ere, **azken glaziazioaren** garaia da Madalen aldia; hotza egiten zuen. ETC-prentsa

Giza espeziearen desagertzea **azken glaziazioarekin** lotu zuen. ETC-prentsa

Lautaden jatorria ulertzeko, berriz, **azken glaziazio**-garaietaraino egin behar da atzera. ETC-prentsa

Garai hartan, **azken glaziazio** aroan, Euskal Herriko klima hotzean bizi ziren aberetarik zen. ETC-prentsa

Ikerketa horren arabera, baztandarrek duela 15.000 urte, **azken glaziazioan**, Europan izandako herrien jendeztatzean hartu zuten parte. ETC-prentsa

Baina bertako biztanleek ez dakite zer den modernitatea, **azken glaziazioari** ihes egin nahi dioten mamut urdinak baitira. ETC-prentsa

Azken glaziazioa amaitzean (duela 8.000 urte), klima epeldu eta lehortu zenean, Euskal Herriraino iritsi eta lurraldean erraz hedatu ziren artadiak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Orain dela 10.000 urte, **azken glaziazioa** amaitu orduko ia, munduko hainbat tokitan nekazaritza asmatu zen, eta horrela sortu ziren lehen hiriak eta zibilizazioak. ETC-literatura, saiakera

Azken glaziazio handiaren amaieran, orain dela hamabi mila urte inguru, Lurra berotzen hasi zen, eta nahiko bizkor, baina, bat-batean, atzera hotz minera egin zuen beste mila urtez edo. ETC-literatura, saiakera

Azken ikerketek **azken glaziazio** garaian kokatzen dute, Europa Mendebaleko biztanleak kontinentearen hego-mendebaldean kokatu ziren garaian. ETC-zientzia, zuzenbidea

32 *azken hats*

Halatan, Plantsungo nagusi zaharrak azken **hatsa** eman zuen. Itxaro Borda

Ene lagunetarik anitzek, arrunt flakatuak, azken **hatsa** emaiten dute. Michel Oronoz

Arratsalde batez, abendu hastapenean, azken **hatsa** eman zuen eta biharamunean ehortzia izan zen Sarako elizan. Elena Touyarou

Eta azken **hatsa** jaurtiki zuen. Joan Mari Irigoien

Kristo gurutzefikatua, bere azken **hatsean,** Aitari erraiten diola: [...]. Joan Mari Irigoien

Aita edo ama azken **hatsetan** ikusi eta esperantza lantzen, iraultzen eta zaintzen zuten oraino. Itxaro Borda

Zenbait egunez, Frantzia serioski kolpatua da, azken **hatsetan**. Michel Oronoz

Italiako Fossaltan Gerla Handia azken **hatsetan** zelarik. Edorta Jimenez

33 *azken hatsa bota*

Tristea da gure ama, aita gaztainak botatzera joan eta gaztainekin batera **azken hatsa bota** zuen egun hartatik. Arantxa Iturbe

HHP: **Azken hatsa botatzeko**. Karlos Linazasoro

1942an urkamendiaren oinera eraman ninduen dedikazio eta konpromisoa orduko bera da gaur egun ene bihotzean, eta halakoa izango da **azken hatsa botatzen** dudan eguna arte». Berria - Mundua

Ezetz esateko burua mugitu, begi hezeak okertu -hiltzeko zegoela ez jakitera, barre eragiteko moduan-, eta **azken hatsa bota** zuen gizajoak, askariaren orduan. Ramon Saizarbitoria

34 *azken hatsa eman*

Minutu bat lehenago bizirik zen, Stanleyrekin eta sukaldariarekin hizketan, eta gero, hurrengoan, lurrean zen, kiribildurik, **azken hatsa ematen**. Oskar Arana

Halatan, Plantsungo nagusi zaharrak **azken hatsa eman** zuen. Itxaro Borda

78 egun iraun du egoera hortan, joan den egunean **azken hatsa eman** artino. Herria

Eta **azken hatsa eman** eta hil da. Matías Mujika

Azken hatsa ematen ari da -erantsi zuen. Aingeru Epaltza

Handik lau hilabetera, berriz, anai Benitok **azken hatsa eman** zuen; eta, handik urte erdira, finean, anai gazteago baten bisita izan zuen amonak. Joan Mari Irigoien

Aitzitik, zer nekien nik gizakumea **azken hatsa emateko** den tenoreaz. Edorta Jimenez

Ez du zentzurik esateak neska bat amaren sabeletik atera orduko, une horretatik bertatik, gurasoen borondatearen biktima dela, eta horrela segitu behar duela **azken hatsa eman** arte. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere larri hartan, eztarria garbitu nahian, eztulka hasi zen, baina alferrik jardun zuen, izan ere handik gutxira, deiadar lazgarri bat egitearekin batera, **azken hatsa eman** baitzuen. Patxi Zubizarreta

Oliadura baizik ezin izan du hartu; eta zeremonia doi-doia finiturik **azken hatsa eman** du. Jon Muñoz

35 *azken hirugarren*

Latinez azentua azken aurreko silaban zegoen, silaba hori luzea zen guztietan; eta silaba hori laburra baldin bazen, orduan **azken hirugarren** silabaren gainean kokatzen zen. Isabel Arrigain

1ek bat, hamar edo ehun balio du, dagoen lekuaren arabera: azkena, azken-bigarrena, edo **azken-hirugarrena**. Jon Muñoz

36 *azken hitz*

Moko-guri hari azken **hitza** ez uzteko erabaki sendoa. Jon Muñoz

Guztiarekin ere hauteskunde batzordeak du azken **hitza**. Migel Angel Mintegi

Unibertsitate pribatuek zer ikasketak eskaintzen dituzten eta non eskaintzen dituzten erabakitzeko, administrazioak izan beharko luke azken **hitza**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egon eta entzun dezagun bukaera, azken **hitza** zure izango da. Jon Alonso

Gizakiak egitasmoak, Jaunak azken **hitza**. Elizen arteko biblia

37 *azken igurtzi*

-Ikusi al duzu tiroa? -galdetu dio Lepic jaunak, oraindik epel dagoen erbia haztatzen ari dela, sabel guria ukitzen, **azken igurtzia** emanez bezala. Itziar Otegi

Egun batean Mosen Millanek Pacori eskatu zion, lagun ziezaion hil zorian zegoen gaixo bati **azken igurtziaren** ematen. Pablo Sastre

10 Sar daitezke, mintzalekura joan ezin litezkeen ahizpen aitortzak entzuteko, haiei Jauna emateko, **azken igurtzia** eman eta arimaren gomendioa egiteko. Askoren artean

38 *azken instantzia*

Hau zioen autonomia erkidegoko justiziako auzitegi nagusiei buruz: bere esparruko auzibideetan azken **instantzia** izan daitezela. Berria - Euskal Herria

Lege batetik besterako aldian, hala ere, bada aurreko ezeztatzearen salbuespenik, baldin eta oker eta abusu horiek finkatu eta irmotu badira transakzio, azken **instantziako** epai edo arbitro ebatzien bidez eta gauza epaituaren indarraz. Andres Urrutia

Joachimek ezin eraman zezakeelako, beti ere, Hannak bere buruari eta ez beste inori iriztea, haurrei dagozkien zeretan, **instantzia** azken eta bakarra. Joxe Austin Arrieta

Hau zioen autonomia erkidegoko justiziako auzitegi nagusiei buruz: bere esparruko auzibideetan azken **instantzia** izan daitezela. Berria - Euskal Herria

39 *azken irrintzi*

Orduan zientziaren **azken irrintzia** izan zena guretzat irakurketa nekagarri eta zaharkitu bilakatu zen. Xabier Kintana

Zakurren negarrak diruditen **azken irrintziak**. Eider Rodriguez

40 *azken izotzaldi*

Lerro horrez bestaldean, **azken izotzaldiaz** geroztik hor errege izandako oihana, artean nagusi zen zalantzarik gabe Homo Agricola-ren lanen gainetik, lan hauek ireki zutelarik bidea erromatar legioak Mediterraneotik Rhin eta Danubion gora joan zitezen. Iñaki Mendiguren

41 *azken judizio (**36** agerraldi, **25** liburu eta **2** artikulutan; orobat **azken juizio** **10** agerraldi, **8** liburu eta artikulu **1**ean)*

Kreazioa, Jaunaren Jaiotza, bigarren etorrera, azken **judizioa**. Askoren artean

Uste dut azken **judizioa** arte ez direla zenbait gauza argituko. Patxi Zubizarreta

Genesia eta Azken **Judizioko** Eguna: munduaren hastea eta akabatzea... Joan Mari Irigoien

Michelangeloren *Azken* ***Juizioa,*** *Gioconda*, dagerrotipo bat edota film bateko fotograma bat. Josu Zabaleta

Dies Irae Azken **Juizioko** eguna deskribatzen duen erdi aroko eresi bat da. Xabier Olarra

Gustuko ditudan poetak behin eta berriz irakurtzen ditut, haiek azken **juizioan** nire defentsa presta dezaten. Harkaitz Cano

Lehena da, sekulako presondegia, bere hondakin, zikinkeria eta usain tzarrekin jasan beharko dutena, mundu gorpuzkin honen garbitzera etorriko delarik azken **judizioaren** eguneko sua. Piarres Xarriton

42 *azken memento arte*

Hiru egunez jokatu da Davis kopa Parisen, hiru egun luze, **azken memento arte** ez ginakiela nork irabaziko zuen. Herria

Baina **azken memento arte** presoek lanean segitu zuten. Eneko Bidegain

43 *azken moda*

Azken modazko kirol marka famatuen jantziak aurkeztuak ziren dendetan. Ramuntxo Etxeberri

Eta hango jendeak, zibilizazioaren garapenetan hain aurreratuak, Parisko **azken modak** zeintzuk diren beti ongi dakitenak. Karlos Zabala

Kanpoko ispiluan begiratu diot neure buruari, errimela oraindino betileetan dagoela egiaztatzeko atzeko pijatxuak detailerik galtzen ez duen bitartean, beharbada nire itxura ez da **azken modakoa**, baina ikaratzeko ere ez, neska! Sonia Gonzalez

Unibertsitatean, ez omen dago ikus-entzunezkoetan inor behar bezala trebatzerik, **azken modako** teknologiak eskura eduki ezean. Joxerra Garzia

Elur taula erran nahi du **azken modako** emana den Snowboard hitzak. Herria

Politikariek, gureek barne, H delakoa **azken modan** ahoskatuz, Herriarentzat jagoitik garapen globala eta globalizantearen premia proposatzen zuten, petits foursez asetzen segituz bistan dena: bideak zuzentzen, bihurguneak ezabatzen, seinale elebidunak orokortzen eta dirulaguntzak banatzen, demagun, esnea gasna zezaketen nekazariei. Itxaro Borda

Itxoiteko gelan hiru lagun zeuden zain, elkarrengandik urrun eserita: hogeita hamar urte inguruko gizon bat **azken modara** jantzia eta burusoiltzen hasia, walkman bat zuen gazte beltz bat, eta berrogeita hamar bat urteko gizon bat aurpegi markatukoa eserlekuan zabal-zabal eserita. Joseba Urteaga

Baina Delpanisa bakarra zen hoinbeste zeta, balus, farfail, larru soinean zituena, urreria, perleria lepotik eta ukaraitik dilindan, Pariseko aberatsen **azken modako** irudia herri ttipi honetara ekartzen zuena. Michel Oronoz

Bosch zerra **azken-modako** batean? Jesus Mari Mendizabal

44 *azken muga*

Generoa orokortasunaren **azken muga** da, diskurtsoaren esparrua, domeinua. Askoren artean

Gizonak ez bazuen onartu azterketa biologikorik egin ziezaioten, zertan oinarri zezakeen haren aldarrikapena **azken mugaraino** mantentzeko konfiantza itsua. Ramon Saizarbitoria

Berehala bete ziren erregearen aginduak, eta printzesak bere burua bakarrik aurkitu zuen erresumaren **azken mugaz** bestalde. Jon Arretxe

Libratua niz baina ene indarren **azken mugan**. Michel Oronoz

Igaroak ziren **azken mugatik**, ibiliak Herioren lurretara jotzen duen azken ubidetik, eta ez zuten atzera joz puntu hartaraino itzuli nahi gehiago. Felipe Juaristi

Eta begiak itxi zituen, kordea galdu, ahulduraren **azken mugan** ametsetan egiteko. Iñaki Zabaleta

Astunki erabiltzen zuen bere arrazoimena, ia basatiki, lainoturik barreiatzen zitzaion arte edo espazio hutsaren eta isiltasunaren ataria zen **azken muga** logikora iristen zen arte. Jose Morales

45 ***azken nahi*** hilburukoa, testamentua. ik **testamentu**.

Lainoetan edo ez, oso argi hitz egin zuen nik Harryren **azken nahia** irakurri nion ostean. Oskar Arana

-Hik esango duk -kondenatuaren **azken nahia** entzun behar dudalakoa egin zait. Jon Alonso

Kontua da Cristina andrearen **azken nahia** izan dela bere zerraldoa bizkarrean eraman dezatela, eta gainean bandera eta harmarria. Koldo Biguri

Eta Sara, amonaren **azken nahia** betetzeko, itzuli egin zen. Joan Mari Irigoien

Bete ezazue nire **azken nahia**: Fubuki izan dadila nire hiltzailea. Joxan Elosegi

46 ***azken oliadura*** oliadura.

Azken **oliaduraren** erritoa hiltzeko zorian den norbaiten gorputzeko alde batzuk Apezpiku batek sagaratutako olioz ukitzean datza. Xabier Olarra

Hirugarren egunean azken **oliadura** eman zioten. Kofesatu nintzen, komuniatu ninduen, eta azken **oliadura** eman. Xabier Olarra

47 ***azken ordu*** heriotzako ordua.

Anai Bernardo heriotzako **azken orduan** zegoela, ohean eserarazteko eskatu zuen. Askoren artean

Atsekabeturik hil zen, hortik atera kontuak, ez zelako egokitu bere **azken orduan** nork lagundurik ere. Juan Garzia

Dardaraz ari zen Xarles, itxuraz **azken ordua** iristen zitzaiola. Itxaro Borda

Beraz, ipuinaren azken lerroekin batera helduko zaizu **azken ordua**. Javi Cillero

Senekak bazekien Neronen bidegabekeriari zor ziola bere **azken ordua**. Imanol Zurutuza

Ez dizut nire **azken orduan** dei egin nahi: banoa zuk nire izen eta nire aurpegiaren berri izan gabe. Eduardo Matauko

48 ***azken oren*** azken ordua, heriotzako ordua.

Parisen, Sorbonako teologia eta filosofia liburuek ez dute inoiz gauaz hala erne atxiki, nola **azken orenetan** higanotaren eskuizkribuak. Aingeru Epaltza

Eta zer bertzerik gara, bada, bizitzak astindu eta inarrosten gaituenean, ustekabeko baten aitzinean, edo **azken orenean**...? Joan Mari Irigoien

Aspaldiko partez "Gure Aita Zeruetan Zirena" marmaratzen hasi nintzen, **azken orena** hurbil neukala kasik segur. Itxaro Borda

Hainbeste sofrikario ene **azken orenetan**. Herria

49 ***azken perediku*** pastoral batean, gibel-solasa.

Bena berriz erraiteko, bi pastoral badira üda hontan, eta Sohütakoak esküa lüzatzen deio Iruri-Zalgizekoari, azken **perediküaren** aitzineko kantorean, bertset honez: [...]. Herria

Etengabeko bilakaera duen ikusgarri bat da trajeria eta Antso Handia obran ere berrikuntzarik nabarituko dute ikusle adituenek, hala nola güdüken egiteko moldeetan, türken ateraldietan, **azken perediküaren** emateko eran. Berria - Kultura

Azken **perediküaren** emaileak, aldiz, Eric Alzazebe Püntt eta Eric Hardoi Ñane. Berria - Kultura

Aldaketak egongo direla, hala nola Türken jokoan eta Azken **Perediküan**.· Hebentik eskertzen dütüt, aholkü zonbait emanez haurrer azken **peredikü** hontan, beste güzientzat ere balio dükealako esperantxan. Berria - Kultura

50 ***azken putz***

Nor ote da gauaren erdian zure bila etortzen den betiko azken **putza**? Ramuntxo Etxeberri

Koronela "kaikutzar **azken putza"** zelako ustean hazitakoak ginen batik bat. Mirentxu Larrañaga

51 ***azken txanpa***

Azken txanpan, ordea, Baskoniak itxaropena izateko moduko lana egin zuen, eta sei puntugatik baino ez zuen galdu; itzuliko partidan, Gasteizen, alde hori gainditzen saiatu beharko du. Berria - Kirola

Partidaren **azken txanpan** Xalak eta Pascualek higatze estrategiaren fruituak jaso zituzten. Berria - Kirola

Historia apur bat eginez abiatu eta, aroarekiko entsegu eta entrenamendu, galernak ez gaitu harrapatu bai, eta bizi dugun **azken txanpa** hau, Euskalmet eta beste ahaleginzaleok barne, uste dut pozik gozatzeko lainekoa dela. Pello Zabala

Lantegiko **azken txanpan** daude horiek ere. Urtzi Urrutikoeetxea

Igoeraren **azken txanpara** iritsi ahala, aitaren etxola zaharraren tximinia ikusi nuen aitzinean, eta hurrengo, etxola bera soilgunearen alde batean. Mirentxu Larrañaga

Hor zaudela jakitea, nire mezuak entzuten dituzula jakitea lagungarri gertatuko zait **azken txanpari** ekiteko. Patxi Zubizarreta

52 ***azken tximino*** *adkor* pertsona-talde batean, garrantzi gutxien duena.

Ni hemen **azken tximinoa** nauk... -ke adar luzea jaurti nuen "Ez erre hemen, mesedez" zioen txartelaren aldera. Aingeru Epaltza

Azken tximinoa izateagatik! Jon Arretxe

Alfabetoaren azkena, GasteiZko **azken tximinoak**. Txema Ramirez de la Piscina

53 ***azken zotin*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Colinek baietz egin zion buruaz **azken zotinen** artean. ETC-literatura, saiakera

Hala, alkandorako lepoa lotu nuen, gorbataren korapiloa estutu, **azken zotina** bota, zeinak alkoholaren oroitza ekarri baitzidan ahora, eta irteerara jo nuen ahal bezain duin, caboverdetarrak saihestuz. ETC-literatura, saiakera

54 ***azkena*** *adlag* azkenik.

Azkena, sukaldera sartu, eta garbitu egin zituen emakumeak, bazkaritarako, utziak zizkion dilistak. Patxi Zubizarreta

Azkena egindakoak erakutsi zizkion Martzelinok. Xabier Etxabe

55 ***azkena begien bistan izan*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

"Pam" eta nire arteko denbora azkarrago iragatea besterik ez duzu nahi, zure eguneroko ohar elkarrizketatuek **azkena begien bistan izan** dezaten. ETC-literatura, saiakera

56 ***azkena eman*** amaitu, bukatu.

Ezpataz eta sastagaiz, **azkena eman** genien oraino bizirik zeudenei. Aingeru Epaltza

Orain, baina, helburu nagusia "ETAri **azkena ematea**" dela nabarmendu du Espainiako gobernuburuak. Berria - Euskal Herria

Nik, berriz, Europatik alde egin nahi nian gerra hari **azkena emateko**, gehiegi iraun baitzuen, nire ustez. Jon Muñoz

57 ***azkena jo*** burutatu, bukatu.

Kalkulatzen da mendea **azkena jotzen** ari zen urte haietan bazirela munduan 26.000 nazioarteko GKE, hamar urteko epean kopurua hamar aldiz biderkatu ondoren. Pello Salaburu

Pascual Joverren agintaldiak **azkena jo** du. Berria - Ekonomia

Nabilen lekuan kantari somatuko nauk **azkena jo** arte. Patziku Perurena

58 *azkenak egin*

- ARCELOR (%2,91) Mittaleko arduradunekin bilduko da, **azkenak egindako** Erosteko Eskaintza Publikoari buruz hitz egiteko. Berria - Ekonomia

59 ***azkenaz goiti*** *adlag* azkenik, azkenean.

Azkenaz goiti, orain aise betetzen ahal didazuke eskari hori. Jon Muñoz

60 ***azkenean*** **1** *adlag* gainerakoen ondoren.

Azkenean baten batek hartu eta txakur burua duen gazteari luzatu dio. Monika Etxebarria

Azkenean ostatu batean aurkitu du tipoa. Fernando Rey

Azkenean horratik askatu zuen, eta baimena eman ere eman zion bere juezaren bila joateko, emandako sententzia hura betearazi zezan. Patxi Ezkiaga

Baina azterketa aprobatu egin zuen **azkenean** Jorge Besek, irakaslea onbera zelako eta desfase mentalekiko zaletasuna zuelako, bibote laranja eduki arren. Unai Elorriaga

Azkenean zerbait egiten duenean ere, pasiboa da jokabidea: patuak berarengan obratzea onartzen du, berak deliberatuki zirt edo zart ekitea baino. Juan Garzia

2 *interj* **-Azkenean**! -atera zaizu pozik, hunkituta, Basauriko espetxera bidean. Rafa Egiguren

Kamera (**azkenean**!) gutxiago mugitu dut hara eta hona, eta, ondorioz, objektuaren mugimenduak askoz ere definituago ageri dira. Joxe Austin Arrieta

-Steffi?... Bai?... **Azkenean**! Eskerrak! Ordu laurden behar izan dinat, hirekin jar nazaten. Anton Garikano

61 ***azkeneko*** *izond* azkena. ik **azkenengo**.

Azkeneko zainketa-trukea ikusten ari baikinen. Txillardegi

Kleimanek hiriko **azkeneko** berriak kontatzen ditu; horretarako informazio iturri bikaina da zinez. Josu Zabaleta

Ez, ez ezak ipini **azkeneko** kopa. Berria - Kultura

Mende horren **azkeneko** urteetan toki guztietan ageri den makina. Pello Salaburu

Hitz **azkeneko** ahoskabetasunean, bai ematen digu, ordea, herskari guztiak ahoskabetzeko baimena euskarak. Lourdes Oñederra

62 ***azkenekotz*** azkenekoz.

Azkenekotz batek derrote bertze bieri: Xipri Arbelbide

Eta **azkenekotz**, gorena eta hobezina den zerbait guztiz huts egina du bihurtzen. Piarres Xarriton

Azkenekotz eritasunak traumatisatu egiten ninduen. Menane Oxandabaratz

Azkenekotz ez zieten kasurik ere egiten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baina gizon gaitza baita holakoa, horra heldu haren tenorea ere, itzultzen jokoa, alderatzen suertea eta, pirka pirka, 22-35, 26-36 eta **azkenekotz** biak 39 tan berdin. Herria

63 ***azkenekoz*** *adlag* azkenik; azkenean, azken aldiz.

Berba haiek gorde nituen gogoan, Ánimas karrakako kanoien danbada lehenengoz eta ia **azkenekoz** orduantxe entzun nuela gorde nuen legez. Edorta Jimenez

Jakin badakigu **azkenekoz** ganbera ireki zuena duela berrogeita hamar urte bota zutela hemendik. Iñaki Mendiguren

Azkenekoz ikusi zintudanean, dena ondo zihoan. Oskar Arana

Azkenekoz hemen afaldu genuenean, hiru gintuan. Xabier Olarra

Haren eztulak ez zuen itxura onik **azkenekoz** ikusi genuenean. Anjel Lertxundi

64 ***azkenerako*** *adlag* azkenean.

Astelehenean zure zain egon nintzen; eta, ez zentozela ikusita, zure koadroa jaso nuen **azkenerako**. Karlos Zabala

Elkarrekin luzaroan bizi direnek, senar-emazteek nahiz zakur eta jabeek, **azkenerako** elkarren antza hartzen dute. Ramon Saizarbitoria

Azkenerako, halako une batean, Napumoceno jaunak pentsatu zuen bazela garaia biltegiari enpresa itxura emateko. Bego Montorio

Azkenerako nire alboan eseri zen eta bere humanidadeak ez zidan mugitzeko espaziorik uzten. Joseba Sarrionandia

65 ***azkenetan*** *adlag* hiltzeko zorian; bukatzeko zorian.

AEBek ez zioten arnasarik emango 1939ko martxoan bere **azkenetan** zen Errepublikari. Edorta Jimenez

Abendua **azkenetan** dugunean, San Silbestre egunez, noski, hor daukagu beste esaera, gure kostaldeko lehengo garaiak gomutarazten dizkiguna: San Txilibristo, bixigua ezpainetatik dingilisko. Pello Zabala

Azkenetan den erromeria baten ikusle. Xabier Etxabe

Balitekek mundua **azkenetan** egotea. Xabier Olarra

66 ***azkenetan egon*** hilzorian egon.

Berrogei egun besterik ez zituen eman bertan, eta **azkenetan zegoen**. Xabier Etxabe

-Ama **azkenetan dago**, odol asko galdu du, berorren eskaka ari da... Anjel Lertxundi

Azkenetan zegoela ematen bazuen ere, arnasa hartzen zuen oraindik. Inazio Mujika Iraola

Azkenetan dago baina ez hilik. Harkaitz Cano

67 ***azkenetan izan***

Apirila **azkenetan zen** meza emango zigutela lehenengoz agindu zigutenekoa, maiatzaren zazpia, berriz, egin egingo zela esan zigutenekoa, eta hilaren hondarra hura eman zigutenean. Edorta Jimenez

Mediku eta erizain frantsesak abisatu genituen -haiek bakarrik baitzuten han sartzeko baimena- berehala arta zitzaten **azkenetan ziren** eri gaixo haiek. Marzel Etxehandi

Gerra **azkenetan dela**, eta amaitu berritan, izuen gordelekuak jendez mukuru daude. Jokin Urain

Testamentua edo."Mundu hori **azkenetan da**, zorionez eta zoritxarrez, eta hori ixteko egin dut liburua. Berria - Kultura

Azkenetan den erromeria baten ikusle. Xabier Etxabe

Mahai gaineko bi kandelak **azkenetan dira**, eta gau giroa dago ilunpean, eta lo egin ezinak ematen duen amets giroa. Joseba Sarrionandia

Adrianok, halaz guztiz, bazekien, "bere informatzaile batek" esanda, faxismoa **azkenetan zela**. Fernando Rey

EAJko burukide gazteetako bat zen orduan Retolaza, beteranoa ere bazen arren: 1945ean kartzela utzi zuenean BBBn sartu eta, frankismoa **azkenetan zela** sumatuta, alderdian jende gazteagoa sartzeko ahaleginean ari zen. Berria - Euskal Herria

Larra, larre, larratz eta inguruko hitzak, zenbat ote dira gure herrian! Ezin konta ahalakoak bai! Ba, hortxe kokatu behar da Larrearen azkena, edo larrea **azkenetan izaten** deneko sasoia iritsi dela adierazten duen larrazken hitz polit udazkeneko hau ere. Pello Zabala

68 ***azkenez*** *adlag* azkenik.

Aipa ditzagun **azkenez** zeharkako grafiak. Isabel Arrigain

Erantzunak, **azkenez**, zorionez, ezabatu egin zuen ordu arteko tonu maior nekagarria. Bernardo Atxaga

Gizon berria nintzen **azkenez** eta neuk bakarrik erabakitako bidetik gainera. Hasier Etxeberria

Kostatu jata, baina **azkenez** ebatzi dot: ez naz zugaz etxera bueltatuko. Xabier Montoia

Giltzen bila dabilela ahotik darion lurrunetan ikusi dio **azkenez** adats horia. Urtzi Urrutikoeetxea

69 ***azkenik*** **1** *adlag* azkenean; bukatzeko, azkenengo aldiz.

Azkenik, hor dugu bizkarrezurreko ornoak lotzen dituen zela-giltzadura. Irene Aldasoro

-Kontua duk Ripodasek ere Urtxipiaren heriotza komeni zitzaiola erabaki zuela **azkenik**. Aingeru Epaltza

Berriro ateratzen du painelua, betaurrekoak garbitzearren, eta orduan dakuskiot **azkenik** aurpegi osoa, beltzarana: begi urdinengatik ez balitz, indio zahar batena izan zitekeen. Joxe Austin Arrieta

Andere Mariri esker nesken eskola pribatuak badu segida Baigorrin, lehenik Tanerian, gero Kristobalenean, **azkenik** etxe berri batean, Keswick andereak eskaini lurretan eraikia. Michel Oronoz

2 *interj* -Haran Sakratua, **azkenik**! -oihu egin zuen Éomerrek-. Agustin Otsoa

Anttonek bederatzi urte eta erdi zituen, eta nik gidabaimena · **azkenik** !- atera berria. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 25 aldiz agertzen direnak)

azken agur (55); **azken agurra** (168); **azken ahalegin** (27); **azken ahalegina** (35); **azken aldera** (81); **azken aldi** (82); **azken aldi honetan** (55); **azken aldia** (72); **azken aldian** (292); **azken aldiko** (41); **azken aldiz** (201); **azken arnasa** (45); **azken aste** (126); **azken aste hauetan** (36); **azken astean** (79); **azken asteetako** (39); **azken asteetan** (149); **azken asteotako** (31); **azken asteotan** (209); **azken atala** (31); **azken atalean** (29); **azken aukera** (183); **azken aurreko** (84); **azken azkenean** (27); **azken batean** (1485); **azken baten** (87); **azken batez** (40); **azken begirada** (25); **azken beltzean** (31); **azken berriak** (27); **azken bi asteetan** (25); **azken bi denboraldietan** (27); **azken bi egunotan** (31); **azken bi hamarkadetan** (26); **azken bi hilabeteotan** (25); **azken bi partidak** (53); **azken bi partidetan** (44); **azken bi urteetako** (26); **azken bi urteetan** (135); **azken bi urteotan** (106); **azken biak** (64); **azken bilera** (28); **azken bolada** (96); **azken bolada honetan** (64); **azken boladan** (218); **azken bost** (250); **azken bost urteetan** (41); **azken bost urteotan** (62); **azken bultzada** (30); **azken buruan** (162); **azken datuen arabera** (33); **azken denbora** (118); **azken denbora hotan** (54); **azken denboraldietan** (57); **azken diskoa** (31); **azken egoitzara** (30); **azken egoitzarat** (264); **azken egoitzarat segitu** (32); **azken egoitzarat segitua** (57); **azken egun** (175); **azken egun hauetan** (48); **azken egun hotan** (40); **azken eguna** (125); **azken egunak** (88); **azken egunean** (176); **azken eguneko** (28); **azken egunetako** (80); **azken egunetan** (305); **azken egunotako** (78); **azken egunotan** (445); **azken emaitza** (74); **azken emaitzak** (37); **azken epea** (25); **azken erabakia** (149); **azken esaldia** (25); **azken eskaintza** (41); **azken etapa** (59); **azken etapan** (30); **azken fasean** (39); **azken filma** (35); **azken finean** (795); **azken galdera** (26); **azken garaiotan** (26); **azken gaua** (32); **azken gauza** (25); **azken hamar urteetan** (45); **azken hamar urteotan** (65); **azken hamarkadan** (67); **azken hamarkadetan** (50); **azken hatsa** (79); **azken hatsa eman** (25); **azken hau** (241); **azken hauek** (85); **azken hauk** (40); **azken hauteskundeetan** (62); **azken helburua** (73); **azken hilabete** (85); **azken hilabete hauetan** (29); **azken hilabetean** (65); **azken hilabeteetako** (29); **azken hilabeteetan** (173); **azken hilabeteotako** (26); **azken hilabeteotan** (226); **azken hiru** (540); **azken hiru partidak** (28); **azken hiru partidetan** (28); **azken hiru urteetan** (74); **azken hiru urteotan** (48); **azken hiruhilekoan** (47); **azken hitz** (46); **azken hitza** (232); **azken hitzak** (125); **azken hogei urteotan** (30); **azken honek** (116); **azken honen** (54); **azken honetan** (32); **azken hori** (204); **azken horiek** (89); **azken horien** (47); **azken horrek** (119); **azken horren** (59); **azken horretan** (38); **azken inkesten arabera** (30); **azken jardunaldia** (73); **azken jardunaldian** (201); **azken jardunaldietan** (99); **azken jardunaldiko** (33); **azken kilometroetan** (31); **azken kolpea** (30); **azken lana** (58); **azken lanak** (32); **azken lau urteetan** (58); **azken lau urteotan** (66); **azken laurdenean** (55); **azken liburua** (39); **azken mementoan** (38); **azken mende** (45); **azken metroetan** (49); **azken minutuan** (65); **azken minutuetan** (144); **azken momentuan** (31); **azken muturreraino** (55); **azken obra** (29); **azken orduak** (27); **azken orduan** (182); **azken orduetan** (51); **azken orduko** (207); **azken partida** (283); **azken partidak** (36); **azken partidan** (145); **azken partidetako** (28); **azken partidetan** (137); **azken postua** (25); **azken postuan** (53); **azken postuetan** (33); **azken proba** (44); **azken proban** (37); **azken proposamena** (30); **azken puntan** (46); **azken sailkapena** (25); **azken sailkatuaren** (25); **azken saioa** (58); **azken saioan** (29); **azken tantoetan** (28); **azken txanpa** (73); **azken txanpan** (261); **azken txanpara** (37); **azken ukituak** (32); **azken unea** (59); **azken unea arte** (53); **azken unean** (215); **azken uneko** (31); **azken unera arte** (76); **azken urratsa** (36); **azken urte hauetan** (126); **azken urte hautan** (36); **azken urte hotan** (53); **azken urtea** (40); **azken urteak** (73); **azken urtean** (151); **azken urteetako** (183); **azken urteetan** (858); **azken urteetan izan** (25); **azken urteotako** (197); **azken urteotan** (903); **azken urtetan** (31); **azken zatia** (28); **azken zatian** (26); **baina azken batean** (28); **batez ere azken** (33); **bere azken egoitzarat** (215); **hirugarren eta azken** (34); **honen azken** (25); **hori azken** (45); **horren azken** (37); **lehen eta azken** (38); **nahiz eta azken** (46); **nire azken** (93);mpartidako azken (46); **partidaren azken** (35);msailkapeneko azken (37)

taldeak azken (40); **txapelketako azken** (29); **urteko azken** (65)

azkena da (48); **azkena izan** (73); **azkena izango** (69)

azken azkenean (27); **azkenean ere** (30); **azkenean esan** (34); **azkenean ez** (132); **azkenean lortu** (41); **azkenean onartu** (28); **baina azkenean** (375); **baina azkenean ez** (45); **egin zuen azkenean** (31); **esan zuen azkenean** (35); **eta azkenean** (920)

azkeneko aldiz (108); **azkeneko urteetan** (49)

azkenera arte (66)

eta azkenerako (44)

azkenik gabe (29); **eta azkenik** (566)

---

azkenalde *iz* amaiera aldea. ik **azken**.

Partidaren **azkenaldera** hiruk ihes egin zioten txapapera, baina ordurako kaltea egina zegoen. Berria - Kirola

Batzuek horrela uste izan dute, ikusi dutelako bigarren dinastiaren **azkenaldera** ia lur guztiak feudo bihurtuta zeudela, edo azpifeudo, edo honen edo haren mendeko; baina horrek bere kausak izan zituen, eta aurrerago azalduko ditugu. Iñaki Iñurrieta

Frantzi-iparra terko samar isurtzen bada, batez ere elur erauntsi baten ondorenean, elur gaineko izotz eta guzti, urtearen **azkenalde** hori ez da gozoa izaten. Pello Zabala

Eta, kontakizunaren **azkenaldera**, esaldi bakarrean laburbildu zituen bere ibilerak. Joan Mari Irigoien

Negu **azkenaldeko** edo udaberriko izozteak dira/kaltegarrienak. Bernardo Atxaga

Eta azkenik, zure bizitzaren **azkenaldera**, bat eginik agertu zitzaizun Serafinaren antz bikaina eta Gurutziltzatuaren irudi apala, zu barnetik sutan jarri eta kanpotik zauriez markatu zintuena. Askoren artean

Mundu Gerraren **azkenaldetik** heriotza bitartean egindako kudeaketaren nondik norakoak azaldu zituen atzo Alex Ugalde EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko eta Nazioarteko Harremanak Saileko irakasleak. Berria - Euskal Herria

Eta han, iruditzen zitzaion sarri samar **azkenaldera**, aitak zerbait esaten zuenean besteak harriturik uzten zituena, bi oinatz pare soilik zeuden; berea eta aitarena. Anton Garikano

---

azkenaldi *iz* azken bolada.

Koipea koipearen gainean eta **azkenaldian** ezagunagoak egin diren bi enpresetan inbertitzeko aholkuak Ahorro e inversión atalean. Iñigo Aranbarri

Azkenaldian, ezinezko ari zitzaion gertatzen gaixoari kimioterapia ziklo bat bera ere bukatzea. Imanol Zurutuza

Azkenaldian ia gauero gelditzen omen zen. Fernando Morillo

Aita zahartzen ari zen **azkenaldian**; konturaturik zegoen; nabarituko zuen aitaren falta. Irene Aldasoro

Hain zuzen ere **azkenaldi** hartan geroz eta tristeago ari zitzaion bihurtzen bizimodua doktoreari. Josu Zabaleta

Hortxe dago koska **azkenaldion** mundu guztiko idazleentzat. Hasier Etxeberria

Azkenaldiko gure parte hartzeaz, murru zaharrak oraino orroit dira! Herria

Nik ez dakit bizitza hau eta gero zeozer izango den, baina **azkenaldi** honetan gauza arraroak etortzen zaizkit burura. Bernardo Atxaga

Azkenaldian lo hartzen omen zuen erraz, eta behin obra batean berotzeko sua piztuta bertan erori. Koldo Izagirre

Egia da **azkenaldi** hauetan hasi zela mutiko batekin ibiltzen: Peio izeneko pilotaria zen. Ramuntxo Etxeberri

Gainerakoan, egun osoan **azkenaldian** Euskal Herrian ekoitzitako lanak erakutsiko dituzte. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azkenaldi honetan ez (3); **azkenaldi honetan oso** (4); **du azkenaldi** (3)

ari da azkenaldian (4); **ari dira azkenaldian** (8); **artean azkenaldian** (3); **azkenaldian asko** (6); **azkenaldian behin** (4); **azkenaldian bezala** (5); **azkenaldian bizi** (4); **azkenaldian egin diren** (3); **azkenaldian egin dituen** (5); **azkenaldian egindako** (6); **azkenaldian egiten ari** (3); **azkenaldian eraso** (3); **azkenaldian ere** (3); **azkenaldian espainiako** (3); **azkenaldian euskal herrian** (3); **azkenaldian euskararen** (3); **azkenaldian ez dabil** (4); **azkenaldian ezker** (4); **azkenaldian gertatu diren** (3); **azkenaldian hainbat** (8); **azkenaldian hobeto** (5); **azkenaldian ia** (3); **azkenaldian izan diren** (7); **azkenaldian izandako** (12); **azkenaldian nahiko** (3); **azkenaldian oso** (3); **azkenaldian sarri** (4); **azkenaldian sarritan** (3); **baina azkenaldian ez** (3); **dabil azkenaldian** (5); **dabiltza azkenaldian** (3); **dago azkenaldian** (4); **dela azkenaldian** (3); **ditu azkenaldian** (12); **dituzte azkenaldian** (7); **dugu azkenaldian** (4); **dute azkenaldian** (7); **egin azkenaldian** (3); **egin dio azkenaldian** (3); **egin du azkenaldian** (4); **ere azkenaldian** (5); **ibili da azkenaldian** (3); **inguruan azkenaldian** (5); **izan da azkenaldian** (6); **izan dira azkenaldian** (3); **nahiz eta azkenaldian** (6); **zen azkenaldian** (6); **zuen azkenaldian** (3)

azkenaldiko erasoak (3); **azkenaldiko gertaerek** (3); **azkenaldiko markak** (3); **baina azkenaldiko** (6)

baina azkenaldion (3); **da azkenaldion** (6); **du azkenaldion** (3)

azkenaurreko ik **azken 14**.

---

azkenaurren ik **azken 15**.

---

azkenburu[1] **1** *iz* otorduen bukaerako platera. ik **postre**; **azkenburuko**.

Bakar-bakarrik, bazkaltzera gonbidatzen genituen igandeetan -ia astero- bazkariaren **azkenburu** aldera, Bordeleko ardo esango-didak-zer-berri hura pasata, isildu egiten ziren azkenean. Josu Zabaleta

Auzoa janariz beteriko mahai handi bat zen haientzat, **azkenburu** amaigabe bat, zeinetara hatzak gustura luzatuko baitzituzketen. Karlos Zabala

2 ***azkenburuko koilara*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Protokoloaren araua da beti kanpoko aldetik hastea eta barrukoekin jarraitzea); **azkenburuko koilara**, plateraren gaineko aldean, ahoz behera eta kirtena eskuinera begira, eskuineko eskuaz errazago hartu ahal izateko (ezkertiarrentzat kalte!)... ETC-literatura, saiakera

Azkenburu horiek edalontzi altuetan zerbitzatzen direnez, kafe-koilaratxo arruntak edo **azkenburuko koilarak**, beren luzera mugatua dela eta, desegokiak bihurtzen dira. ETC-entziklopedia

---

azkenburu[2] ik **azken 21**.

---

azkenburuko[1] *iz* otorduen bukaerako platera. ik **postre**; **azkenburu**.

Azkenburukoaren ondotik, hantxe gelditzen ziren pixka batean. Karlos Zabala

Roman ere konturatuta zegoen, eta ezkutuan egoten saiatu zen otorduaren **azkenburukoetan** eta dantzaldi-garaian. Inazio Mujika Iraola

Doi-doia **azkenburukoa** eskatu ostean iritsi zen nire aukera, Tomek barra zegoen aldera zigarreta bat erretzera joateko barka eskatu zuenean (kilo batzuk kentzeko une hartako kanpainan, horixe zuen taktikarik berriena). Oskar Arana

Ez du jaten emakume horrek, txokolatea izan ezik, lehengo batean ere horixe jan baitzuen **azkenburuko**, txokolatea. Edorta Jimenez

Unetxo bat geroago **azkenburukoak** agertu ziren. Iñaki Mendiguren

Azkenburukoan, Perretek hitza hartu zuen, arranditsu samar. Jon Muñoz

Egin lehenago harrera enbaxadoreei: ene berriak dirateke oturuntzaren **azkenburuko**. Juan Garzia

---

azkenburuko[2] ik **azken 23**.

---

azkendu, azken(du), azkentzen **1** da/du *ad* azkena eman, bukatu.

Zalantza egin zuen esaera bukatzean, bere bidelagunaren izenarekin **azkendu** nahi izan balu bezala, oraindik ez zekien eta. Karlos Zabala

Zuzen edo oker, ari gara gure egiteko hau **azkentzen**. Jokin Urain

Parentesiak beti ixten dira, egunak **azkentzen**, bisitak amaitzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Jon Azpillagaren bertsoekin **azkendu** zen meza. Berria - Kultura

Hor nonbaiteko esaeraren batek dioenez, oker ez banago, jasankortasuna **azkendu** egiten da azkenean. Mirentxu Larrañaga

Neguak gero ezabatu egingo zien distira hura gorputzei, uda **azkendu** eta gero negua helduko zelako, baina uda zen oraindik eta hondartzan sargori egiten zuen, eta harea udatiarrek botatako zaborrez ereinik zegoen. Joseba Sarrionandia

Bai, bi hilabete eta hiru egun; biharko eguna ere kontatzen dut hain segur, zeren abentura hau ez baita ordu arte zinez **azkendua** izanen. Jon Muñoz

2 da/du *ad* hil.

Alderantziz, hinduek ikusten bazuten pertsona erdaindua, **azkendu** egiten zuten. Gotzon Garate

Espainia koloniala akabatu dut, Inkisizioaren lehendakaria **azkendu** dut. Koldo Izagirre

Herriko neska-mutilik aberatsenak, ederrenak, horrela **azkendu**? Gotzon Garate

---

azkendun *izlag* azkena duena.

Ez naiz jakite **azkendun** eta azkengabe haren jabe sekula egingo, baina, ordainetan, biziaren gainean garrantzizko zerbait ikasi uste dudala esango nuke. Iñaki Segurola

---

azkenean ik **azken 60**.

---

azkeneko ik **azken 61**.

---

azkenekotz ik **azken 62**.

---

azkenekoz ik **azken 63**.

---

azkenengo **1** *izond/iz* azkenekoa.

Azkenengoa balitz, orduan hortik ez zen inoiz orokorki baliogarria den esakunerik segituko, are gutxiago apodiktikoa den esakunerik; izan ere, esperientziak ezin du inoiz halakorik eman eskura. Ibon Uribarri

Azkenengo horretaz gehiago hitz egiten du, baina olatu antisemita baretu arte itxoiteko esanaz idatzi diot. Ramon Etxezarreta

Nik, ordea, erranen nieke, hauxe dut lehenengo eta aldi berean **azkenengo** aukera horietako bat igotzeko. Xabier Montoia

Azkenengo aldian beste bi ere bai. Gotzon Garate

Azkenengo erradioterapia saioa izan zuen goiz hartan, eta hitz gozoz agurtu zituen Bilbao doktoreak. Imanol Zurutuza

Epaigelako sindikalista pitoa baino atzeragotik, **azkenengo** ilaretan zegoen andre batek arnasa guztiak bota zituen niri oihuka, intzirika esango nuke. Hasier Etxeberria

Azkenengo aldian utzi zuten moduan aurkitu zuen dena, mahai gaina hutsik ageri zela. Joxemari Urteaga

Ia-ia **azkenengo** ukitua ematen ari nintzela, giltza-hots batek ohartarazi ninduen Arantxa etxera sartzera zihoala. Iban Zaldua

2 *adlag* azkenekoz, azken aldiz.

Hala ere, haurdunaldia oso laburra denean, hilekoa **azkenengo** izan denetik 50 egun baino gutxiago igaro direnean, hau da, gehienez 21 eguneko atzerapena izan denean, badago metodo farmakologikoa erabiltzea, kirurgikoaren ordez. Luis Elberdin

Goiza luzea izan da eta nekatuta dago; **azkenengo** egin nahiko lukeen gauza da jende honekin berriketan hastea. Oskar Arana

Azkenengo barre egiten duenak barre handiagoak egiten ditu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Horregatik, aurreko urteko lore-belar eta landarez elizan bedeinkatutako xorta xaharra sutara botatzen zen, eta gero ahal zuten guztiak, aitton-amonak **azkenengo**, sua asko apaldutakoan, salto zegiten, hiru bider, ixkina batetik bederen, Biba San Joan Batista; sarna fuera eta antzerakoak erranez. Pello Zabala

3 azkenengoz *adlag* azkenekoz, azken aldiz.

Bilbon **azkenengoz** izan eta lasterrera bere buruaz beste egin zuen 1961eko uztailaren 2an, Idaho estatuko Sun Valley herriko Ketchum auzunean. Edorta Jimenez

-Leon Martyrekin **azkenengoz** hitz egin duenak eman behar ziek albistea! Pako Aristi

- **Azkenengoz** atxilotu ninduteneanez ez ninduan kapaz beste tortura saio bat agoantatzeko, benetan esaten diat. Unai Iturriaga

Halako irribarre etsi bat nabaritu nion **azkenengoz** begiratu nionean, kamainan etzan baino lehen. Javi Cillero

-Ez, lehenengo biderrez etorri naiz, eta **azkenengoz**. Sonia Gonzalez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azkenengo aldia (3); **azkenengo aldian** (3); **azkenengo aldiz** (7); **azkenengo kantuetan** (3); **azkenengo urte** (4); **bere azkenengo** (3); **orain azkenengo** (3)

---

azkenengoz *adlag* azkenekoz.

"Txooooo!" oihukatu zidan Santik, erdi haserre erdi harriduraz, beragandik **azkenengoz** urruntzen ikusi ninduenean. Jon Arretxe

Halako irribarre etsi bat nabaritu nion **azkenengoz** begiratu nionean, kamainan etzan baino lehen. Javi Cillero

Eta **azkenengoz** margotu zuen, heriotzako ohean zetzala. Imanol Zurutuza

Arbela baino gehiago marmola azaltzeko arriskua badut ere, hilerrira bueltatu beharra dut; **azkenengoz**, oraingoz. Xabier Mendiguren Elizegi

Azkenengoz Lucyrenean egon zenean eskorta bat baino ez zegoen. Oskar Arana

-Ez, lehenengo biderrez etorri naiz, eta **azkenengoz**. Sonia Gonzalez

Barregarria gertatzen da niretzat zeuen andre edo gizonak benetan **azkenengoz** noiz maitatu zenituzten pentsatzen hastea, edota zeuen seme-alaben gorabeherekin nola kezkatzen zareten ikustea. Hasier Etxeberria

---

azkenez ik **azken 68**.

---

azkengabe **1** *izond* azkenik ez duena, amaigabea.

Kaletik begiratuta, eta ordenadoreari datu-zerrenda luze **azkengabe** bat emanik, eskola-umeak uste du hortatik aise atera behar genukeela biharko eguraldiaren bisaia. Pello Zabala

Eta osabaren behako maltzurrak eta haren isiltasun **azkengabeak** misterioz jantzi zituzten hurrengo mementuak. Joan Mari Irigoien

Antzinakotasun eskergaren irudipenari bertzerik gaineratu zitzaion: **azkengabea** izatearena, lazgarria izatearena, konplexuki zentzugabea izatearena. Juan Garzia

Apaizek arrazoi on bat zuten lizunkeria debekatzeko: guri hori aholkatzen ziguten bitartean, euren esku geratzen zen isilpeko bekatuak jakitea eta barkatzea, eta honek botere sinestezina ematen zien emakumeen gainean, eta haragikeriarako bide zabal eta **azkengabea** irekitzen zien. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aldaketa fonetikoen eragina **azkengabea** da. Isabel Arrigain

2 *adlag*

Dardarizoek **azkengabe** ni astintzen. Txillardegi

Aurrerago, karaoi izeneko denda turkoman milaka batzuk hedatzen ziren ordokian **azkengabe**, gameluen bizkarrean haraino garraiatuak izan eta gero. Karlos Zabala

---

azkengabeko *izlag* azkenik gabekoa.

Haurrentzako pedagogia, eta geure buruarentzako pedagogia: geure buruari ikusarazteko bizimoduan aurrera egitea nola den jolasik, txirristalekurik eta kulunpiorik gabeko zigor isolamenduzko eta **azkengabeko** batera kondenatua izatea. Iñaki Segurola

Hona bizitzera ekarria zuenetik, haren ondoan pasaturiko beste gaurik ez zekien, gau minberatu, egonezin **azkengabeko** gauok baino. Juan Garzia

Sar zaitez eta eraman Harenganaino zure multiplizitatearen **azkengabeko** izaera ulertezina, Berak sinplifika dezan bere esentziaren singletasunean. Joan Mari Lekuona

Gelaren ilunean murgildurik, gauaren itsaso beltza urratzen zuen faro gisako hura ikustean, **azkengabeko** atsegina hartzen nuen. Patxi Zubizarreta

Eta, **azkengabeko** otoitzen aitzakiaz, alargunen ondasunak irensten dituzte. Epairik zorrotzena izango dute horrelako horiek. Elizen arteko biblia

Etsiak jota nengoela, alegia, eta ez noski lehen aldiz: izan ere, **azkengabeko** gizon-bakartasun tristera kondenaturik ikusten nuen garai hartan neure burua, sekula santarako emakume baten irribarrearen graziaz gabetua, huraxe behar bainuen bizitzeko, haatik, airea legez. Juan Garzia

---

azkengabetasun *iz* azkengabea denaren nolakotasuna.

Europan egindako itzulpenik ospetsuenetako batean, Burton kapitain ingelesak honelaxe adierazi zuen **azkengabetasun** hori: Book of the Thousand Nights and a Night eta, neurri batean, halaxe jaso dugu guk ere. Patxi Zubizarreta

---

azkenik ik **azken 69**.

---

azkenki *iz pl* kristau teologian, hildakoan gizakiari helduko zaizkion lau gertakizunetako bakoitza.

Tirandura arozko horrek herriaren geruza zabaletan larridura torturatzailea sortzen zuen **azkenki** (heriotza, judizioa, infernua, zerua) hurbilekoen zirrara mehatxuzkoaren azpian bizi izatean. Joan Mari Lekuona

azkenputz *izond/iz* azken postuan iritsi edo sailkatu ohi dena.

Patxi, ohi zuenez, **azkenputz** eta presa itxuran, goizeko egitekoak burutu gaberik, bertze gertakari kitzikagarriren bat haren kameraren premian zegoelako marka. Aingeru Epaltza

Inork ez du **azkenputz** izan nahi. Berria - Ekonomia

Argindar sektorea nahiko apal ibili zen, Fenosa (- % 0,99) **azkenputz** izan zelarik. Berria - Ekonomia

azkentasun *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi) iz* azkena denaren nolakotasuna; azken kausa.

Halaber, konbentzigarria da **azkentasun** hori arrazoi hutsa besterik gabe ez delako tesia, kantiar inperatibo kategorikoaren kasuan bezala. ETC-literatura, saiakera

Gure Sistemako "azkeneko" planeta nano hau (aurrerago mintzatuko '**azkentasun**" horretaz) urrun dago, bai. ETC-literatura, saiakera

Diagnostikoan bat ez etortzeaz aparte, etorkizunean segitu beharreko lehentasunak (eta bigarrentasunak eta, seguruenik, **azkentasunak**) zehazten ere ez dira bat etorri artikuluaren jira-biran dantzan ibilitakoak. ETC-literatura, saiakera

Eta orduan, zure miseria ez zaionean inori axola, zuri ere ez zaizu axola besteren egonezina, eta nor bere baitara biltzen joaten da, etxean baino ez du aurkitzen bakea eta babesa, eta hala bihurtzen da etxea munduaren zentroa, eta hala bihurtzen dira etxekoak lehentasun eta **azkentasun**. ETC-prentsa

azkentze *iz* azkena ematea, amaitzea. ik **bukaera**; **amaiera**.

Irisarrik mutilen **azkentzea** ikusi zuen bere ziegako leiho txikiaren atzetik, ikara handirik gabe, dardararik gabe, zimikorik gabe, ez baitzuten hiltzeko batere beldurrik. Felipe Juaristi

Kolektiboki kudeaturiko autonomia emanez berriz diru-politikari, eta ordainketa -balantzen eragozpen nazionalak ezabatuz, elkargoko integrazioaren **azkentzeak** Europar Batasunaren hazkunde-ahalmena areagotu beharko luke. Koro Navarro

Bertze batek konpentsatu gabeko gauzarik ez dela dioen dotrinaren ondorioen artean, bada bat oso garrantzi teoriko apurrekoa, baina eragin zuzena izan zuena, X. mendearen hastapen edo **azkentzean**, lur zabalera sakabana gintezen. Juan Garzia

Gogoan daukat irratian entzuten zen kanta, Benito Lertxundiren ahotsa: Gau luzea, gau latza, gau azken gabea, nekez gendun ikusi haren **azkentzea**... Agurtzane Juanena

Lanbide eder baten **azkentzea**. Iñigo Aranbarri

azkenurren *izond* azkenaren aurre-aurretik dagoena. ik **azken 14**.

Azkenurren da Ingalaterran, baina txapelduna izana da. Berria - Kirola

Nik hiru itsasargi ezagutzen nituen: Igeldokoa, izpi bat, eta gero bi hutsarte labur; Iger muturrekoa, Hondarribian, bi izpi labur, eta gero oso luzaz itzalia; eta azkena (edo **azkenurrena**: ez nago ziur) Miarritzekoa, bi izpi segidan, eta hutsune luzakorra ondoren. Txillardegi

Otamendik ez du txiripaz kokatu ipuin hau **azkenurren**. Markos Zapiain

azkoiendar *izlag/iz* Azkoiengoa, Azkoieni dagokiona; Azkoiengo biztanlea.

Silo batek azpian harrapatuta hil da **azkoiendar** bat. Berria - Euskal Herria

azkoin 1 *(orobat **azkoina**) iz* torlojua sartzen den pieza hariduna, gehienetan hexagonala.

Brikolaje zale horietako bat bestela, molde guztietako tresneriak liluratuko duena: soldagailuak, **azkoinak**, iltzeak eta iltze-ateratzekoak, zizelak, pintzak, kurrikak, artaziak eta altxaprimak. Joxan Elosegi

Giltzadura bakoitza lotzen duten torloju eta **azkoinak** estutzen badira, egitura zurrun eta jokorik gabea eratzen da. Irene Aldasoro

Tiragomaz, Josemarik torloju bat eta nik **azkoina** jaurti genituen. Joseba Sarrionandia

-Lurrin-makina baten modukoa da eta torlojoz eta **azkoinez** beteta dago -oihu egin zuen, bueltan arineketan zetorrela. Lopez de Arana

2 irud/hed

Beste **azkoin** bira bat gehiago irakurlearen kaptazioan: ikusgaitzetik ikustekoa, negatibotik positiboa nola sortzen den ñasimilatzeko gauza zaila berauñ azaldu ondoren, Lukrezioak oraingoan aurrea hartzen dio eta ez jadanik ideia batean, jarreran baizik: enuntziatuak entzuteko edo ez entzuteko eran. Xabier Amuriza

3 ***azkoin hexagonal*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hartu giltza-sorta erreminta kutxatik, kendu zeramikazko oina, eta, ukondoaren gaineko **azkoin hexagonala** askaturik, desmuntatu egin nuen erdiko juntura. ETC-literatura, saiakera

azkoitiar *izlag/iz* Azkoitikoa, Azkoitiari dagokiona; Azkoitiko biztanlea.

Pedro de Yrizar **azkoitiar** jakintsuna ere zendu da urtarril hortan. Herria

Etxeberritxo **azkoitiarrarenak** ziren haiek, 1900. urtekoak, mendea estreinatu eta lehendabiziko hilabeteetan jarriak. Pako Aristi

Azkoitiarra inoiz izan den pilotari handiena dela gutxik jartzen du ezbaian. Berria - Kirola

azkon *iz* antzinako gezi txikia, gehienetan eskuz jaurtitzen zena.

Geziak jaurtikitzeko dorreak eta gudurako tramankuluak eraiki zituen santutegiari erasotzeko: su -eta harri-jaurtikigailuak, **azkonak** jaurtikitzeko uztaiak, bai eta habailak ere. Elizen arteko biblia

Bestalde, den espazio guztia mugatua dela jorik, norbait azken mutur ertzeraino lasterkatuko balitz eta **azkon** hegalari bat jaurti, hura indar bortitzez egotzitako lekura joango litzatekeela ala zerbaitek eragotzi eta bidea itxiko liokeela uste duzu? Xabier Amuriza

Ikuskizun hark Itzala, funtsean, gauza txikia eta behin-behinekoa besterik ez zela pentsarazi baitzion, gogoeta hura **azkon** bat bezain hotz eta garbi sartuz burura. Agustin Otsoa

Oinek distira egiten zioten sandalien artetik, eta eskuan **azkon** bat zekarren. Juan Kruz Igerabide

Zelatariak, barruntariak, lantzariak harat honat dabiltza beren **azkonak** bizkarrean, eta asko gazteluko mahaian esertzen dira ipuzcoanoei ebatsitako akerki errea jatera. Patziku Perurena

Ai, saiak usoa jan du; otsoak bildotsa jan du; lehoiak bufalo adar-zorrotza jan du; gizonak **azkonaz**, ezpataz, sutautsaz hil du lehoia; baina guk zaldiaz eta idiaz egin dugun gauza bera egingo du gizonaz Horlak: bere gauza, bere zerbitzari eta bere janari bihurtu, bere borondatearen ahalmen soilaz. Josu Zabaleta

azkonar 1 *iz* ugaztun haragijalea, ilea luzea eta grisaxka, eta hankak laburrak eta sendoak dituena, berak egindako zulo sakonetan bizi dena *(Meles meles)*.

Mendi garaiak ahuntzentzat dira, harkaitzak **azkonarren** gordeleku. Elizen arteko biblia

Bidexkan gora lasterka egin nuen, burua han-hemenka makurtuz, beherantz eroritako adarrak saihestearren, eta **azkonar** -zuloen gainetik luzetara jauzika, beldurrak airean, baina aurkituko nuenaren jakitun ordurako. Mirentxu Larrañaga

Ametsetan, bere aurrekoak **azkonar** bila zuloetan barna zebiltzan garaietara itzuliko zen, beharbada. Gotzon Garate

Arratoitxoa, **azkonarra**, edo belatxinga etorriko dira; belatxingak ez badira, sagutxoa edo inurria. Pablo Sastre

McGonagall andereñoa oihuka ari zitzaion norbaiti, entzundakoaren arabera, bere laguna **azkonar** bihurtu zuelako. Iñaki Mendiguren

Jose Uriosteren esaera izango dela pentsatu dut, Gorbeia mendi barrenetako azeriak, **azkonarrak**, basurdeak imajinatuz. Joseba Sarrionandia

2 ***azkonar arrunt*** *(corpusean ez dago; ETCn **30** agerraldi)*

Azkonar arrunta ("Meles meles") ugaztun haragijale bat da, mustelidae mustelidoen familiakoa. Europan bizi da (salbu Eskandinavian, Islandian, Korsikan, Sardinian, Sizilian eta Zipren) eta Asiako eremu handitan. ETC-entziklopedia

3 ***azkonar eztijale*** *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Azkonar eztijalea ("Mellivora capensis") Mellivora generoko animalia da. Artiodaktiloen barruko Mustelinae azpifamilia eta Mustelidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

Kiloz kilo, hozkada boteretsuena duen animalietariko bat da, bere lehengusua den Ratel-a (**azkonar eztijalea**), Tasmaniako deabruarekin, likaonarekin eta beste hainbatekin batera. ETC-entziklopedia

Afrikan harrapari ugari ditu, pardus lehoinabarra, serbala, karakala, **azkonar eztijalea** eta hontz espezie handiak. ETC-entziklopedia

4 ***azkonar jatun*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Azkonar jatuna edo soilik jatuna ("Gulo gulo") Mustelidae familiako ugaztun haragijalea da, batik bat, Eskandinavian, Siberian eta Kanada eta AEB iparraldean bizi dena. ETC-entziklopedia

Hauek geratzen dira: bufaloa, oreina, adarzabala, otsoa, orkatza, **azkonar jatuna**, basakatua, marmota, bisoia, trikua, lepahoria eta uretako arratoia; horien tamainak konparatzeko, ordea, ez dugu aski lekukotza. ETC-literatura, saiakera

---

azkor *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *izond* bizia, bizkorra.

Begirada **azkorra** azaltzen du, indartsua. ETC-literatura, saiakera

---

azkordin *iz* ospela.

Marabutak halako **azkordin** zurixkak ageri zituen azalean, elefante zahar baten itxura ematen zioten tumoreak. Joxan Elosegi

Jainkoarren, Horazio, joan deneko hiru urte honetan ohartua nauk: hain xorrotx bilakatu duk gure gizaldi hau, ezen baserritar oiesa ere hain doakion gorte-gizonari oinatz-oinatzean, non orpoko **azkordina** ere igurzten baitio. Juan Garzia

---

azkorri 1 *iz* egunsentia.

-Hemendik goiti, kontrabandorik ez gehiago -manatu zion Joanttok, **azkorrian**, neska lehena izan baitzen Sarara itzultzera abian. Elena Touyarou

Buruz buru jarri eta niniken oihal beratzak josten zitzaizkien, urtarril mineko igande **azkorrietako** izotz edo goroldioz zuritu harri karroinduak adina geldo. Itxaro Borda

2 ***argi azkorri***

Argi **azkorrian**, soto batean, harri beltz baten aurrean lepoa egin diet zezen sakratuei. Juan Garzia

Lohi-zurrustak zipriztintzen genituen alde banatara, putzuetan barrena igarotzerakoan: argi-**azkorritan** argituriko putzu haiek. Joxe Austin Arrieta

---

azkortasun *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* azkor denaren nolakotasuna. ik **bizitasun**; **bizkortasun**.

Alogereko alamenak alatu genituen, irribarre ainubea ipini eta **azkortasunez** azartu ginen moltsoan sartzera. ETC-prentsa

---

azkortu, azkor(tu), azkortzen *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* da *ad* biziagotu.

Ez dira soil erasotzaile alemanak ikusten arraza bezala, ezpada norbera ere zelta gisa konprenitzen da eta **azkortzen** da: "barbarie allemande" versus "fierté française", barbaro germaniarra eta zelta fierra buruz buru. ETC-literatura, saiakera

---

azkura 1 *iz* larruazalean sentitzen den erresumin modukoa, hatz egitera bultzatzen duena.

Eta **azkura**, kopeta aldeko **azkura** hori. Imanol Zurutuza

Gainera, **azkura** dagoenean hazka egitea baino gauza hoberik ez dago. Luis Elberdin

Azkura zuen gorputz osoan eta dar-dar egiten zuen. Lopez de Arana

Egundoko **azkura** sudurrean eta eztarrian, mukiak litroka, malkoak zerizkidan. Joxean Sagaztizabal

Van Daanek marranta du, edo, hobeto esanda, **azkura** pixka bat du eztarrian. Josu Zabaleta

Gurutze Gorriaren esanetan, berriz, narritadura eta **azkura** eragin dio jendeari isuriak. Berria - Gaiak

Badakit urduri jartzen denean ezkerreko hanka eskuinekoaren gainean gurutzatu eta oin-azpian **azkura** egiten hasten dela; badakit lepo ertzean haizea botaz gero, barrez lehertzen dela, eta badakit triste dagoenetan, begietako kolorea aldatzen zaiola. Arantxa Iturbe

Sabelean **azkura** sentitu eta zer ote zen begiratzeko alkandoraren azkeneko botoia askatu duenean, lizundurik azaldu zaio zilborra. Eider Rodriguez

Begiak igurtzi zituen arin, **azkuraz** baino gehiago bertan zituela ziurtatzeko. Joxemari Urteaga

Ardiak batzuetan zuhaitzen kontra igurtzika hasten dira, **azkuraren azkuraz**. Gotzon Garate

2 *iz* zerbaitek eragiten duen irrika edo desira.

Zer nolako mauka Hiriarentzat, jateko goseak urdailean sortzen duen **azkura** ere urdaila igurtziz baretuko balitz! Joxerra Garzia

Kontuan hartu behar da protagonismo hitza aipatze hutsak **azkura** sortzen duela. Berria - Harian

Adiera bat baino gehiago du arrakala berbak, baina Barandiaranek "itxi eta zabaltzen diren arrakala" horietan oin hartu du, kezkatzen eta ernegatzen duten gaiei buruz mintzatzeko, "irakurleari **azkura** sortuko dioten poemak idazteko". Berria - Kultura

3 ***azkura eduki***

Azkura daukat. Berria - Kultura

Zuhaitz bat jo nuenean, **azkura neukanan** kalparrean. Anton Garikano

Azkura daukazu buruan. Rafa Egiguren

4 *azkura egin*

Badakit urduri jartzen denean ezkerreko hanka eskuinekoaren gainean gurutzatu eta oin-azpian **azkura egiten** hasten dela. Arantxa Iturbe

"Azkura dut, azkura dut!", hasten nintzen goizean ama ni janztean, larruazalean **azkura egiten** zidaten artilezko jertseak jartzen zizkidanean. Fernando Rey

Azkura egiten zion eztarrian. Koro Navarro

-Bai - **azkura egin** zuen Justok belarrian, ahapeka hitz eginaz jarraitu aurretik. Joxemari Urteaga

Kokotsean irteten ari zitzaidan biloari **azkura eginez** , egoera hartatik nola onik irtengo nenbilen neure kabutan. Juan Kruz Igerabide

Ahanztura ez al da, askotan, barrenean **azkura egiten** digun itxaropen baten aurkako antidotoa? Pako Aristi

5 *azkura eman* azkura sentiarazi.

Hantxe, iluntasunak baino are gehiago, usain bero sarkor batek geldiarazi zuen, animalia bizien ufako batek, zeinaren alkaliek **azkura ematen** baitzioten sudurrean eta eztarrian. Karlos Zabala

Sabela **azkura ematen** zidaten gauzaz beterik neukala iruditzen zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

-Kristoren **azkura ematen** , ordea! -nik, hortz artetik. Aingeru Epaltza

6 *azkura hauts* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Azkura-hautsa gordea zeukala, Ulenspiegelek berak jantzi zuen Pompilius apezpiku soinekoz, eskunarruak eta makila ipini zizkion eta jendea bedeinkatzeko latinezko modua irakatsi zion. ETC-literatura, saiakera

Ikas bidaiek urte anitzetan utziko die gustu azukretua, nehori kontatuko ez dizkiotenak: karamelu urtuak sakeletan, Allenderen sekretua, algarak, eltxo ausiki erraldoiak, **azkura-hautsa** zaindarien galtzerdietan, armiarmak ohepean, hondar beroaren leuna, erredurak, kidearen sorpresazko potta, lasterraldia lotegian ilunpeka, haur larru beltzaranaren gozoa. ETC-literatura, saiakera

Azkura hautsa , izenak dioen bezala, azkura eragiten duen hautsa edo gai hautskara da, giza azalean aplikatzen denean. Txantxa gisa erabili ohi da, espero ez duen biktimarengan. ETC-entziklopedia

7 *azkura izan*

Bzkarrean **azkura izan** , eta hatz egingo dizun inor ez izatea; "Polikarpo!" (edo "Dabid!") hots egin, eta ondora inor ez etortzea; horra bakardadea zer den. Patxi Zubizarreta

Ian ere, gizaki izan aurretik txori izan zirenez, hasierako asteetan apur bat basatiak izaten dira berez; eta **azkura izaten** dute sorbaldan, hegoak zeuden lekuan. Julen Gabiria

-Azkura izaten dugu eta hazka aritzen gara... Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azkura egiten** (4); **azkura ematen** (10); **azkura eragiten** (3); **azkura hori** (3); **azkura sentitu** (4); **azkura sentitzen** (3); **azkura sortzen** (4); **halako azkura** (4)

---

azkuratu, azkura(tu), azkuratzen du *ad* azkura egin.

Kopeta kristalaren kontra jarri nuen, aho-zabalka eta neure bikiak **azkuratzen** . Joxean Sagaztizabal

---

azkure ik **azkura**.

---

azkurri ik **hazkurri**.

---

azmetar *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* *izlag/iz* Azmekoa, Azmeri dagokiona; Azmeko biztanlea.

Gustura ematen ditu esplikazio guztiak **azmetarrak** . ETC-prentsa

Elgarri baia eman dute Sylvie Iriberri Makea Haixekoak eta Didier Mogaburu **Azmetar** gazte sanoak. ETC-prentsa

Herritarrei " **azmetar** " deitzen zaie. Donibane Garazi herrialdeburura 17 km daude. ETC-entziklopedia

---

aznahi *iz* azkura.

Haatik, erregela dela esaten diguna ez da ez hitzaren ondoan gertatzea, baizik eta, hor bai, baina gainerakoetan ez gertatzea: **aznahi** , esnarri, eznarri, esne, asmatu, hizño, noiznahi. Lourdes Oñederra

---

aznarismo *iz* Jose Maria Aznar Espainiako presidenteak (1996-2004) garatutako estiloa edo droktina.

Erroren ustez, "gizartearen gehiengoak arbuiatu duen **aznarismoa** Nafarroan ezartzen ari da Miguel Sanz". Berria - Euskal Herria

Aznarismoak itzal luzea utzi du, eta ez du apaltzeko itxurarik, puska batean. Berria - Harian

---

azoka 1 *iz* merkatua.

Baina nik badakit zer erosten duten **azokan** . Jose Morales

Larunbata da, **azoka** -eguna. Oskar Arana

Azokan ezkerretara hartu eta Grafton Streetera egin zuen. Irene Aldasoro

Gerezi sasoian, amak konpota egiten du **azokan** aurkitzen dituen anpolai gizenenekin eta, gero, potetan sartzen. Anjel Lertxundi

Ezin dira **azokara** erostera joan, ez bada 6etatik aurrera. Felipe Juaristi

Luzaroko bakeak **azoka** giroa garaiarazten du, eta batera egoismo soila, koldarkeria eta alferkeria, eta herriaren gogoa makurraraztea. Jenaro Garate

Norma Lúciak deusetako erabiltzen ez zuten gela huts batean jartzen zuen sugea, atea itxi, Sete Portaseko **azokan** erositako intsentsu kiratsua piztu, bazter batean kokoriko jarri, eta sagua askatzen zuen, Selmak jan zezan. Karlos Zabala

2 *iz* salgai bereziak erakusteko eta saltzeko merkatu gisakoa.

Arratsaldean Lisboako liburu **azoka** bisitatzen dut. Edorta Jimenez

Herri hazietan egin ohi dira **azokak** , feriak, jaiak eta ospakizunak, eta inguruko herri txikiendako ardatz eta bilgune bilakatzen dira, eta hizkuntzan ere ageri-agerian izaten da gune horien eragina. Koldo Zuazo

Montevideoko liburu **azokan** erdietsi nuen liburuxka duela bi urte edo, eta orain, adurraren azpijoko bat medio, deika ari zitzaidan isiltasunean. Aritz Gorrotxategi

Sarri ospatzen baitira aste hauetan azienda eta abelgorri, fruitu eta barazkiekiko **azoka** eta merkatu klase guztietakoak. Pello Zabala

3 *abere azoka*

Gaur egun auzo hortan dagon munduko **abere azoka** haundiena (Liniers deitzen dena) bisitatu ahal izan dugu. Herria

Pont Neuf kalearen mutur batetik bestera, iraulki orgak karga husten ari ziren, galtzadaren bazterretan jarrita, zaldiak geldirik eta elkarren ondo-ondoan lerrokatuta, **abere azoka** batean bezala. Karlos Zabala

4 *arabiar azoka* *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Arabiar azokak inguru desberdinetara egokitzen dira. Horrela, badaude hirikoak eta nekazal ingurukoak. Espazio horietan pertsonek behar dituzten produktu eta lanbide guztiak aurkitzen dituzte: janaria, espeziak, arropa, eguneroko produktuak, abereak, artisauak... ETC-entziklopedia

Arabiar azoka batek hartu du horren tokia, Gasteizko jaietako egitarauak aurten aurkeztu duen berritasun ikusgarrienetako bat izanik. ETC-prentsa

Newsgaming talde uruguaiarrak egin duen September 12th, A Toy World proiektuan, **arabiar azoka** batean dauden zibilen artean dauden balizko" terroristak" bonbardatu behar dira. ETC-prentsa

Dena den, egunean zenbaitetan ikusmenak eta entzumenak bat egiten dute **arabiar azokak** eskaintzen duenaz gozatu ahal izateko. ETC-prentsa

5 *azoka eskubide* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Azoka hiria edo **azoka eskubidea** termino juridikoa da, Erdi Aroan sortua, azokak hartzeko eskubidea duen europar hiria adierazteko, herri eta hiri batetik bereizteko. Hiri bat "azoka-hiria" edo " **azoka-eskubideak** " izan ditzakeen bezala deskribatzen da, nahiz eta azoka dagoeneko ez dagoen, baldin eta legeak hala badagokio. ETC-entziklopedia

6 *azoka-hiri* *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Azoka hiria edo azoka eskubidea termino juridikoa da, Erdi Aroan sortua, azokak hartzeko eskubidea duen europar hiria adierazteko, herri eta hiri batetik bereizteko. ETC-entziklopedia

Azoka hiriarena argi dator plan estrategikoan. ETC-prentsa

Azoka zena **azoka-hiri** bilakatzeko saiakerak zaildu ditu kontuak, eta 56.000 euroko diru galerekin itxi zuten 2013a. ETC-literatura, saiakera

7 *azoka txiki*

Azoka txiki batera iritsi da gero artista, eta mundua irudikatzen duen arrautza bat erosi du; erosi du odolezko malkoak isurtzen dituen Doloretako Ama bat ere. Berria - Kultura

Gizarte beharretarako dirua biltzen zuen **azoka txiki** bat bisitatu nuen, eta aurkitu nuen harrokeriarik handiena auzoko batek ekarritako sagar-tarta izan zen. Bernardo Atxaga

Maider argazki eta album zaharren bila ibili ohi zen beti, hala igandeetako **azoka txikian** nola Traperos de Emaús, Remar eta antzekoen biltegietan. Iban Zaldua

Eta honi dagokionez esan beharra dago Estrela Plazako merkatuak ere aipamen berezia merezi izan zuela Napumoceno jaunaren testamentuan, non bigarren eskuko **azoka txiki** batekin konparatzen zuen. Bego Montorio

8 *merkataritza-azoka*

Azoka guztiak **merkataritza azokak** dira neurri batean, artea sortzeko beharrezkoa delako merkatuaren bultzada. Berria - Kultura

9 *zientzia azoka* *(corpusean ez dago; ETCn **45** agerraldi)*

Zientzia azoka mundu osoko ikastetxeek antolatutako lehiaketa bat da. **Zientzia azoka** baten bereizgarria da proiektuaren sarrerek metodo zientifikoa erabiltzen dutela hipotesi bat probatzeko. ETC-entziklopedia

DBHko eta batxilergoko 110 taldek ikasturtean prestatutako lanak aurkeztuko dituzte **Zientzia Azokan** . ETC-prentsa

Aranzadi Ikastolako DBH3ko Astronomiako ikasleak Donostiako Kutxaespazioak antolatu duen **Zientzia Azokan** izan ziren joan zen asteburuan (argazkiak erakusten duen moduan). ETC-prentsa

Zientzia Azoka egingo dute gaur Bilbon, Elhuyar Fundazioak antolatuta. ETC-prentsa

DBH eta Batxilergoko ikertzaile gazteek landutako 110 proiektu zientifiko aurkeztu ditu **Zientzia Azokak** Bilboko Plaza Barrian. ETC-prentsa

DBH eta Batxilergoko ikasleen 90 talde urte osoan garatzen aritu diren zientzia proiektuak erakutsiko dituzte gaur Bilbon, **Zientzia Azokan** . ETC-prentsa

Elhuyarreko **zientzia azokan** egon nintzen lehenengo aldiz, etxeko makinarekin. ETC-prentsa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aire garraioaren azoka (3); **antzerki azoka bertan** (3); **arco arte azoka** (3); **arrain azoka** (3); **artisau azoka** (3); **artisautza azoka** (4); **aurtengo azoka** (9)

azoka alternatiboa (3); **azoka antolatzen** (4); **azoka baino** (4); **azoka barruan** (3); **azoka bat** (9); **azoka batean** (14); **azoka baten** (4); **azoka berezia** (3); **azoka bertan behera** (5); **azoka bete** (3); **azoka bisitatzen** (3); **azoka da** (15); **azoka edo** (3); **azoka egin** (6); **azoka egingo dute** (5); **azoka egiten** (5); **azoka egun** (3); **azoka eguna izanik** (3); **azoka egunean** (4); **azoka egunetan** (3); **azoka erakusketa** (3); **azoka ere** (10); **azoka ez** (7); **azoka handi** (3); **azoka handia** (4); **azoka hau** (6); **azoka herritarra** (3); **azoka hori** (4); **azoka horri** (3); **azoka hortan** (3); **azoka ireki** (3); **azoka izan zen** (3); **azoka izango da** (5); **azoka jarri** (3); **azoka nagusia** (4); **azoka ondoko** (3); **azoka oso** (4); **azoka plaza zaharrean** (3); **azoka txiki** (3); **azoka zabaldu** (3); **azoka zaharraren** (4)

baina azoka (5); **bederatzi azoka** (3); **bi urteko azoka** (4); **bigarren azoka** (3); **biurteko azoka** (3); **buruzko azoka** (6); **da durangoko azoka** (4); **dfoto azoka** (5); **donostiako antzerki azoka** (3); **du azoka** (6); **duen azoka** (3); **dugu azoka** (3); **durango ko azoka** (3); **dute azoka** (4); **edo azoka** (3); **erriberako azoka** (3); **eskulangintza azoka** (5); **frankfurteko liburu azoka** (3); **garraioaren azoka handiena** (3); **herri azoka** (3); **herriko azoka** (3); **hiriko azoka** (3); **izan da azoka** (4); **lehen azoka** (5); **midem azoka** (4); **musika azoka** (3); **nazioarteko azoka** (8); **neguko azoka** (11); **produktuen azoka** (3); **umore azoka** (4); **zabalguneko azoka** (3); **zen azoka** (7); **zuen azoka** (3)

aurtengo azokak (3); **azokak bere** (4); **bilboko liburu azokak** (4); **dira azokak** (4); **du azokak** (10); **durangoko azokak** (9); **nazioarteko azokak** (5); **umore azokak** (4)

azokako balkoitik (5); **azokako sari nagusia** (3); **azokako zuzendari** (5); **azokako zuzendariak** (3); **da azokako** (4); **dfoto azokako** (3); **du azokako** (3); **durangoko azokako** (5); **liburu azokako** (4); **neguko azokako** (4)

akzio azokan (3); **antzerki azokan** (3); **arco arte azokan** (3); **arco azokan** (4); **arrain azokan** (5); **aurtengo azokan** (6); **azokan aurkeztu zuen** (3); **azokan aurkitu** (3); **azokan bere** (3); **azokan bertan tratu** (3); **azokan egin** (3); **azokan ere** (7); **azokan erositako** (3); **azokan ez** (4); **azokan izan** (4); **azokan izango da** (4); **azokan izango dira** (4); **azokan jarriko** (3); **azokan lau** (3); **azokan parte hartuko** (7); **baina durangoko azokan** (3); **cannesko midem azokan** (4); **da azokan** (3); **den azokan** (4); **dira azokan** (7); **diskoen durangoko azokan** (3); **donostiako azokan** (3); **donostiako liburu azokan** (3); **du azokan** (5); **dute azokan** (5); **frankfurteko azokan** (3); **habanako liburu azokan** (3); **leioako umore azokan** (5); **musika azokan** (6); **nazioarteko azokan** (7); **nazioarteko liburu azokan** (3); **neguko azokan** (23); **nijni novgorodeko azokan** (3); **zabalguneko azokan** (3)

animalien azokara (3); **azokara eraman** (6); **azokara iritsi** (3); **azokara jo** (3); **azokara joan** (13); **azokara joateko** (5); **azokara joaten** (4); **dira azokara** (3); **durangoko azokara** (6); **liburu azokara** (5); **nazioarteko azokara** (3)

durangoko azokarako prest (4)

azokarekin batera (4)

azokaren atarian (6); **azokaren berri** (4); **azokaren erdian** (6); **azokaren harira** (3); **azokaren inguruan** (5); **azokaren inguruko** (3); **azokaren ondoan** (3); **baina azokaren** (3); **dfoto azokaren** (5); **durangoko azokaren** (11); **gari azokaren** (3); **liburu azokaren** (6); **zen azokaren** (3)

azokarik ez (3); **liburu azokarik handiena** (3)

azokatik gertu (3); **azokatik kanpo** (3)

azokaz gain (3)

hegaztiak azoketan (3); **liburu azoketan** (4)

---

azokagune *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)* *iz* azokak egiteko esparrua.

Lasterka zihoan **azokagunearen** kanpoalderantz, hondartzako duna pikoetara bidean. ETC-literatura, saiakera

Urteetako tentsio ugarien ostean, Amioko **azokagunean** (Compostelan) egindako BNGren nazio batzarrak hausturaren bidea ireki zuen alderdi soberanistan. ETC-prentsa

Lasa anaiekiko hitzarmenari esker, Gizpuzkoako kale **azokagune** handienetan salgai egongo da eta Patxi Aldanondok, aldiz, hiri barneetarako janari saltokietara eramango du Muskildiko kooperatibako mozkina. ETC-prentsa

Irati **azokagunean** egingo da ekimena, 18: 00etatik aurrera. ETC-prentsa

Horretarako, kamioi bat jarriko du Belorrietako **azokagunean** , 10:00etatik 13:00etara bitartean. ETC-prentsa

Joanden asteburuan iragan da Bioterra azoka Irungo Fikoba **azokagunean**, Eko-Nekazaritzak eta Biharko Lurraren Elkarteak antolaturik. ETC-prentsa

Ostiraletik igandera iraunen du, lehen aldikotz Miarritzen, Irati **azokagunean**, Parmeko aireportuaren ondoan. ETC-prentsa

Antzinako hiriko **azokagunea** zen, Tiber ibaiaren harana zeharkatzen zuten bideek bat egin zuten tokian. ETC-entziklopedia

Azokaren plaza historikoa (Markt), munduko **azokagunerik** ederrenetakotzat jotzen zen. ETC-entziklopedia

Macroom (irlandako gaelera irlanderaz "Maigh Chromtha") Irlandako Errepublikako hego-mendebaldean dagoen Cork konderriko udalerria eta **azokagune** bat da, bere urak Lee ibaia Lee ibaira isurtzen dituen Sullane ibaiaren ertzean kokatzen da. ETC-entziklopedia

---

azokari *iz* mekataria.

Berebiziko kemenez egin omen nuen, hala esan didate; eta hau da nik berorri esango diodana, herri honetan diotenez, emakume **azokari** horiek baino jende txarragorik ez dela. Patxi Ezkiaga

---

azolio *iz* aza egosia, olioz, gatzez eta baratxuri frijituz ondua.

Bi zopa atera zituzten, eta Pernandok bietatik jan zuen; haragi egosia atera zuten gero, **azolioa** odolkiarekin ondoren, eta, jaki nagusira iristean, zer ikusiko Pernandok, eta amuarrain handia jarri beharrean, txikia jarri zuela neskame madarikatu hark, hezur hutsa zena. Koro Navarro

---

azorri *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* aza orria. ik **azosto**.

Ez belarritakoak, belarriak baizik, hatz txikerra sartzen dugun zulotxoaren inguruko **azorri** parea. ETC-literatura, saiakera

Aixa garaitua izan zenean, Mahomak hogeita zortzi urte lehenago aholkaturikoaz oroitu zen bat-batean norbait: -Zintzilikatu zure **azorria** emazteak ikus dezakeen lekuan. ETC-literatura, saiakera

---

azorria *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* zigorra.

Bodu Bala Sena, muturreko monjeen **azorria** . ETC-prentsa

Aldaketa horren buruan zegoen pertsona oposizioan zegoenean gobernuaren **azorria** zen alor honetan. ETC-prentsa

---

azorriatu, azorria/azorriatu, azorriatzen du *ad* zigortu.

Azorriatutako zaldien apoek txinpartak eragiten zituzten. Lopez de Arana

---

azorripean *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) adlag* zigorpean.

Izerdi sundatik urrun zeuden lan burokratikoak utzita, sarritan hurreratzen zen ezkutuko gure batzarretara, gerora maiz ahozgoratuko zuenez, langileen batasuna batzarretan sustraitzen baitzen eta langileen batasun horrek ahalbidetuko baitzuen faxisten **azorripean** zetzan Euskal Herria askatu eta iraultza proletarioa gauzatzea. ETC-literatura, saiakera

Kultura ere ekonomiaren **azorripean** zigortu behar badugu, azaleratu ditzagun egia guztiak. ETC-prentsa

---

azosto *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* **1** *iz* aza hostoa. ik **azorri**.

Aza berdea ("Brassica oleracea var. sabellica") aza landare mota burugabea da, hau da, hostoek buru trinkoa eratzen ez dutena. **Azostoak** jateko landatzen da, baina badira landare apaingarritzat erabiltzen direnak ere, kolore deigarrikoak. ETC-entziklopedia

Errefau-aza ("Brassica oleracea var. gongylodes") aza landare mota burugabea da, hau da, hostoek buru trinkoa eratzen ez dutena. Sukaldaritzan erabiltzen da zurtoin hanpatua jateko, **azostoak** bazkatzat diren bitartean. ETC-entziklopedia

Barazki honek **azosto** lodi, lau eta distiratsuak ditu, berde urdinxkak. Zurtoin lodiak ditu eta infloreszentzia ñimiño gutxi batzuk, ia aztarna hutsak, brokoliren antzekoak. ETC-entziklopedia

2 *iz* peioratiboki, belarri handiko pertsona.

-Nahi dudan bezala hitz egiten zioat nire emazteari, **azostoa** ! ETC-literatura, saiakera

---

azota *iz* nitrogenoa.

Nitrogenoa edo **azota** neurriak aldiz beti emendatzen ari dira lurralde osoan. Herria

---

azotaldi *iz* azote kolpea.

Hiru sos sari exekuzio bakoitzeko, eta bi **azotaldi** bakoitzeko. Aingeru Epaltza

Azotaldiak eguneroko ikuskizun bilakatu ziren ziudadelako patio zabalean. Aingeru Epaltza

---

azotatu, azota(tu), azotatzen du *ad lpar* zigorkatu, zehatu.

-Gauza horietarako lekuak eta lekuak zeudek, eta egunen batean harrapatzen bazaituztet, **azotatu** eginen zaituztet! Joan Mari Irigoien

Bere burua **azotatzen**. Xipri Arbelbide

Waltari kubanoa, 25 urte, mutiko zimela eta axola gabea, bere gisako apuña batean pilota **azotatuz** ari, laster eta jauzi ezin sinetsizkoen punpekari bat ginuen itsaso hainditik etorria, eta Oçafrain pilotari berezko prestu jokotsuak zion altxatua parioa. Herria

---

azote **1** *iz* zigorkatzeko tresna. ik **zigor**.

Gizon asko ukitu zuten **azotearen** hatz beltzek. Juan Garzia

Bere amaren bularretik **azote** kolpeka, goizegi urrundu populuaren zati bat, odolaren emateko gertu zegoen Ama Euskal Herriaren salbatzeko. Itxaro Borda

Bainan heztzaileak bere belaunen artean hazkarki tinkatzen du, zafratzen du **azote** kolpeka, eta azkenean zaldi bortitz hori gelditzen da oro akiturik eta harriturik, dardar ikaran dagoela. Xipri Arbelbide

Saindu penitentzigile zenbaiten **azotezko** zigortzeek zer zorion dauka? Piarres Aintziart

Azotera emango nikek nik halakoa, Termagant-en papera puztegatik. Juan Garzia

2 *iz* zigor kolpea.

Ez bat eta ez bi jotzen hasten ziren, batean zela elektrika hariekin, bertzean **azoteekin**. Eneko Bidegain

Slightlyk dozena bat **azote** jaso zituen, zunda jasotzeko aginduaren aurrean harridura-aurpegia jarri zuelako. Julen Gabiria

Haren bekatoros lagunak, gizonak, ehun **azote** ukaldi ukan ditu bakarrik bere aldetik, hango lege arau, emaztea eta gizona ez baitira berdin gaztigatuak. Herria

Azoteak ausarkiago banatzen ziren, baina ez zuten jendearen ikusmina hein berean pizten. Aingeru Epaltza

Baietz erantzun zion honek, gau hartan bost **azote** hartu zituela.Mahoma profetaren bilobaren martirioa itxuratzearren, euren gorpuak **azoteekin** zaflatuta edo buruak ezpatekin jota ibili ziren Kerbalako kaleetan. Patxi Ezkiaga

-Ehun **azote**, eta desterrua...? Joan Mari Irigoien

3 irud/hed

Eta sortu berria zen beste erraldoi beldurgarri hura, XX. mende bukaerako **azotea**: hiesa. Joan Mari Irigoien

4 ***azote kolpeka***

Bere amaren bularretik **azote kolpeka**, goizegi urrundu populuaren zati bat, odolaren emateko gertu zegoen Ama Euskal Herriaren salbatzeko. Itxaro Borda

Bainan heztzaileak bere belaunen artean hazkarki tinkatzen du, zafratzen du **azote kolpeka**, eta azkenean zaldi bortitz hori gelditzen da oro akiturik eta harriturik, dardar ikaran dagoela. Xipri Arbelbide

5 ***azote ukaldi***

Berrehun **azote ukaldi** bakoitxak, mutikoak segurik bizkarra, besoak eta zangoak odoletan omen baitzituen! Herria

Ni soldadoa niz, zibilak ez ditut ezagutzen! **Azote ukaldi** azkar bat bisaiarat igortzen daut. Michel Oronoz

6 ***azote ukaldika***

Bocholt ondoko geltoki batean trena gelditzen da: manu idorrak heldu zauzkigu, zimiztak bezala, "Raus! Schnell!", eta **azote ukaldika** aitzina pusatzen gituzte, kabala tropa bat bezala. Michel Oronoz

Batzuetan zanpatzen zituzten aldi bat gehiago ala gutiago, zer aldatuko zuen Zaindari haiek **azote ukaldika** erantzuten zieten, zenbait aldiz, lurrean itzulipurdika ari ziren jende-ziminoei. Eneko Bidegain

Taliban delakoak itsuski oldartu zaizkiote, ez dela holakorik egiten! Bi gazteak hartu dituzte eta plaza baten erdian, zernahi jende bildurik karia hortarat, zafratu **azote ukaldika**! Herria

---

azotea *(ETCn **5** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **zabaltza** agertzen da) iz* eremu zabal laua, eskuarki gizakiak eraikia.

Izan ere, emakumezkoen esparrua da **azotea**. Bernardo Atxaga

---

azpa *iz (corpusean irud/hed soilik) iz* orla.

Leihotik lurraren ertza bastatzen zuten mendi lerroak ilun, hain ilun eta etsi susma zitzakeen; emeki-emeki, **azpa** arrosa agertu zen, zeru beltza eta bortu elkorra bereiziz, argizko jazarpena irudikatuz. Itxaro Borda

---

azpantar *iz* (batez ere pluralean) orkatilatik belaunerako zango zatia estaltzen duen jantzia. ik **mantar**[1],

Kaskamotz, kokotsetik belaunetaraino estaltzen zuen mando-manta zuri zabal bat, belus galtza motz oliokarak, artile zuriko **azpantarrak** botoi-zulo beltzekin, espartinak besterik ez oinetan. Koldo Izagirre

Azkuretarako, nahikoa ziren **azpantarrak**. Arantxa Iturbe

Bernizezko zapatak eta **azpantarrak** zeramatzan. Koro Navarro

Ispiluaren argiak zilarrezko isladak isurtzen zituen haren **azpantarren** bi aztaletan. Lopez de Arana

---

azpatu, azpa(tu), azpatzen (corpusean *irud/hed* soilik) da/du *ad* orlaz apaindu. ik **orlatu**.

Apeza hedoi beltzez **azpaturiko** zerura begira zegoela, Maddi jendarmeak aldiz lurrera, urrin zizkolatsua etxeko leiho guztietarik zeriela, urrunean zaldi trosta hots ozena sumatu zen. Itxaro Borda

---

azpeitiar *izlag/iz* Azpeitikoa, Azpeitiari dagokiona; Azpeitiko biztanlea.

Azpeitiarrak gogoan izan zituen horren urrun iritsi ez direnak debutaz hitz egiterakoan. Berria - Kirola

Bai eta palaz jokatu ere Diapara herrixkan **azpeitiar** horrek eraikitako frontoian. Gotzon Garate

"Horrela ibiltzen da", esan zuen ertzain **azpeitiarrak**, erasotzailearen beste hainbat gorabehera ere kontatzen zituen bitartean. Iñigo Aranbarri

---

azpeitiartasun *iz* azpeitiar izatearen nolakotasuna.

Azpeitiko armarritik jasotako pertsonaia hau kaletartuz, Azpeitiko herriaren eta batik bat **azpeitiartasunaren** inguruko gogoeta jarri da abian. Berria - Kultura

---

azpel *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* sorta, azaoa.

Gurpide horretatik behera eroaten zituen osabak behiak errekara eta han **azpelekin** putzuak egin, edan dezaten. ETC-literatura, saiakera

---

azpelar *iz* azafraiaren antzekoa baina jateko oso desegokia den landarea *(Colchicum autumnale)*.

Eguratsa ordu honetan: **azpelarra** dirudi!, dio berak. Joxe Austin Arrieta

---

azpi **1** *iz* edozein gauzatan, lurretik hurbilen dagoen aldea.

Gabon esateko orduko besarkada ematerakoan ikusi zuen gure aita ilehoriaren izterretan gora zebilela eskuekin ilehoria **azpi** horretan nola zegoen jakin nahian. Pello Lizarralde

Eta gero **azpi** horren azpian. Txillardegi

Platereren eta azpilen artean, paper puska urdinez egindako **azpi** baten gainean botata, foie-gras ontziak eta kolore aldakorreko atun eta sardina latak ageri ziren, bai eta saltsak, boilur kontserbak, barazki beratuez egindako ongailuak ere, botila lepamotz aho-zabal batzuetan sarturik. Karlos Zabala

Abiatzean bide bazterreko legarrak Dodge-aren **azpiak** jo ditu. Pello Lizarralde

2 (leku atzizkiekin, singularrean) ik **azpi 10**; **azpiko**.

Txorrotadaren **azpian** sartu-irtena egin eta segituan txizerrekatxo horixka botatzen hasi zen. Jon Arretxe

Eta hauspoaren mugimenduek ez gastatzeko, beste zapi bat soinuaren **azpitik**. Koldo Izagirre

Zure itxura ikusita, esango nuke auto **azpian** ibili zarela. Xabier Paya

Ohean kiribilduta eta tapakiekin burua eta guzti estalita, linterna elektriko bat ateratzen nuen koltxoiaren **azpitik** eta gero irakurtzeari eta irakurtzeari eta irakurtzeari ekiten nion atseginez. Anjel Lertxundi

Erradiazioaren eta beroaren poderioz dena salda bizia bilakaturik, lurrintzen hasi zen, bakterio frangok, lur **azpian** gorderik, bizirauten zuten bitartean. Jose Angel Irigaray

Ez daramagu pijamarik ez bestelako arroparik, biluzik nago izaren **azpian**. Agurtzane Juanena

Arratsaldeko ikasgaiak haginaren **azpian** hartzen ditut beti. Antton Olano

3 (bere horretan, izen sintagmarik gabe)

-Ez duk jendea **azpian** hartu behar -esan zuen, gurdi gainetik jauzi egiten zuela. Karlos Zabala

-Batzuek diotenez, Luthek paktu bat egin omen zuen Azpimunduarekin, eta geroztik bere izpiritua han **azpian** bizi da, bere gorputza lur azalean dabilen bitartean. Joanes Urkixo

Platonentzat, adimenaren gainetik edo **azpitik** bada zerbait gizakiagan, adimena erabili gabe zerbait ezagutu, gogoratu egiten duena, adibidez. Jenaro Garate

Buruzagiek bezala, baten bat behar dute **azpian**, nor sentituko badira. Markos Zapiain

Behean dagoena, behean ez ezik **azpian** ere bai-baitago jeneralean. Joxerra Garzia

Kabroi hark **azpian** hartuta zeukan Garbiñe logelan bertan, eta Amaia txoko batean zegoen negarrez, izterrak odoletan. Aitor Arana

Likido beltza botatzen du erlauntzak **azpitik**. Unai Elorriaga

4 *iz* izterra.

Hankak ireki zituen, **azpiak** lurrean ozenaraziz. Itxaro Borda

5 ***azen azpitik zopak jan***

Baina Euskal Herrian aspaldi hautsi ditugu muga horiek, eta orain dela urte asko hasi ginen **azen azpitik zopak jaten**. Pello Salaburu

6 ***azpiak atera***

Eta Marlenek **azpiak ateratzen** dizkio uste zabaldu horri: kapela erostearen ironiaz, Brooken aurreiritzia eraisten du. Anjel Lertxundi

Baina, horrekin batera, ezin zen eztia bildu, ongarria egiteko **azpiak atera** edo artaldea belaira eraman. Pello Salaburu

Gogoratzen naiz ukuiluetako **azpiak ateratzen** ari ginen goiz batean pazientzia galdu eta maldizio batean hasi zela, gure kide andaluziarrak harrituta uzteko moduan hasi ere, eta nik, giroa arintzearren, ez kexu izateko esan niola, arrosarena bezain ederra zela simaurraren usaina. Bernardo Atxaga

-Baserrian animaliekin kontuz ibili beharra dagoela: gure aitonari behin lau saihets puskatu zizkioan etxeko zezenak, hari **azpiak ateratzen** ari zela. Xabier Etxabe

7 ***azpiak egin***

Hermannek, **azpiak egiteko** pala harturik, ukuiluko simaurretan sartu zuen kirtenaren barreneraino. Anjel Lertxundi

Azpiak egiteko pala lana, eta asketako sarde lanak amaitu ondoren, Eligio, bere jokoko tokia hartu ordez, lasto pila batean etzatera joan zen; ez zen onik sentitzen, eguneko neke guztiengatik agian, eta parean harrapatu zuen ur harengatik guztiagatik. Josu Zabaleta

8 ***azpiak jan*** **1** zerbaiten azpia hondeatu, eta euskarri gabe eta behea jotzeko arriskuan utzi.**2** norbaiti buruz gaizki esaka, marmarka ari izan.

Ziur naiz, seme, erretoreak eta hura gure herrira bidali zuten gizonek bazekitela ezingo zizkiotela borroka garbian **azpiak jan** nire aginpideari. Jon Muñoz

Izeberraren aipuak ekarri dit gogora pasadizo hori baina, orain ohartzen naiz, izozmendi bitxia da Itsasondokoa, ezkutuan materia ez baina zulo erraldoia daukana, Chillidaren Tindaya edo Oteizaren asmazio horietako baten antzera **azpiak jandakoa**, hutsartearen gainean dabilena. Xabier Mendiguren Elizegi

Sendo eta tente jarraitu zuen nire buru burdinazkoak; ez zegoen han nire sabelaren arrokari **azpiak jango** zizkion marinel ronik. Koro Navarro

Horiei esker, horien sabelkeriazko egoismoari esker, despotismoa nagusitu eta nazio oso bati **azpiak jaten** dizkio. Karlos Zabala

9 ***azpian eduki*** mendean eduki. ik **azpi 10**.

Azpian naukan larrimin hau guztia kanporatzeko. Josu Zabaleta

Jariodunak **azpian edukitako** zernahi ukitzen duena kutsaturik gelditu ko da arratsera arte. Elizen arteko biblia

10 ***azpian harrapatu***

Bat-batean barruan zeuden guztien gainera erori zen etxea, eta [...] gizon errukarri hura bakarrik hil zen, azpian **harrapatuta**. Berri horrek Lecœur andrea zanpatu zuela zirudien, urre guzti hark azpian **harrapatu** izan balu bezala. Karlos Zabala

Erlijio edo sekta eldarniatu batek **harrapatu** dituela azpian gure lagun hurkoetarik asko eta asko. Iñaki Segurola

Besoz beso iristen ziren hara, kaleak gurdien artean zeharkatuz, barrez, azpian **harrapatuak** izateko beldurrik gabe. Karlos Zabala

Hitzek dezaketena, hitzen zorrotza, kamusten baita ideien zapalak, erraztasun eta segurantzia arinak azpian **harrapatzen** dituelarik. Iñaki Segurola

Orduan logika garbiak **harrapatzen** gaitu azpian, eta logika garbiaren arabera, zuria ez dena beltza da. Iñaki Segurola

11 ***azpian hartu*** mendean hartu.

Urak **azpian hartu** zuen herria. Edurne Elizondo

Itun-lagunek kanpora botatzen zaituzte zeure lurraldetik, zurekin bakean zeudenek iruzur egin eta **azpian hartzen** zaituzte, mahaikide zenituenek tranpa jartzen dizute hankapean. Elizen arteko biblia

Garaiz hago zaldia **azpian hartu** eta hemendik ziztuan lekutzeko. Aingeru Epaltza

Azpian hartzen asmatuko dute errusiarrek. Karlos Zabala

Musulmanek India **azpian hartu** zutenean, tenplua desegin eta toki horretan mezkita eraiki omen zuten. Gotzon Garate

12 ***azpiko alde*** azpian dagoen aldea. ik **azpialde**.

Arkitrabearen zabalera, **azpiko aldetik** hartuta, sumoskapoko hipotrakelioaren araberakoa izango da. Santiago Iruretagoiena

Aroztegia aldiz, bidearen **azpiko aldean**, errekaren ondoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Basoan aurrera egindako bidea atzera egiteko ez ahal genuen etsi, halako batean, garrasi batzuk entzun genituen bidez **azpiko aldetik**. Inazio Mujika Iraola

Ez dakit aitak gaizki begiratu eta **azpiko aldean** ote zegoen eta Isabelen pisuagatik lehertu ote zen artefaktua, ez dakit, eta ez nuen sekula galdetu. Mikel Hernandez Abaitua

13 ***azpitik*** *adlag* isilpean.

Euskal karlismoaren itoketa burutzeko, Madrilek **azpitik** dena ausarki koipeztaturik, giputx "giri" mordoska bat topatu nuen. Txillardegi

Ez zen oso harritzekoa ere zaletasuna baldin bazeukan behintzat, taberna hartan jokatzen ziren partida onenak, jakina zen dirua zebilela **azpitik**. Koldo Izagirre

Pasarte hauetan guztiotan bada **azpitik** ulertzen den eranskina. Xabier Kintana

14 ***azpitik eduki*** mendean eduki. ik **azpi 6**.

Denak **azpitik dauzka** eta ikusi behar da nola! Herria

15 ***azpitik goiti*** *adlag* azpitik gora.

Ilusioak, alde batetik, eta egiten genuen hartan sinesteak, bestetik, gainditzen zituen oztopo guztiak, eta Everest bera sokarik gabe ere **azpitik goiti** igotzeko gai sentitzen ginen. Pello Salaburu

Bon, eni, gainetik beheiti heldu den historio hori..., eta **azpitik goiti** joan ez dena, hori ez dut behinere biziki konprenitu. Menane Oxandabaratz

16 ***azpitik gora*** *adlag* behetik gora.

Alditxartu nintzen arte, zotinak erasan baininduen, **azpitik gora**, alderik alde, sukar bakarti baten gisa. Karlos Linazasoro

Mastekatu egiten zituzten gero, gormant airean, **azpitik gora** begiratuz. Joxan Elosegi

Zintzoa zen, neska jatorra; zer esan nahi zuen orduan, aski usteko aire andre fatalaren hark, begi handi haiek, bekoki zuriaren azpian sartuta, artistenak bezala **azpitik gora**, eskean edo sotil begiratzen zutela; ile leun haiek, bizkar gainerainoko luzeek, zer esan nahi zuten? Josu Zabaleta

Ez presiski igotzen doalako, baizik **azpitik gora** xurgatzen eta lurrintzen doalako baizik. Pello Zabala

Gizonak bere jokoa ezkutatu du sabelaren kontra eta so egin dit **azpitik gora**. Monika Etxebarria

17 ***azpiz*** *adlag* azpitik, isilpean.

Jalgi nintzen sekulan baino minberatsuago, milesker murritz bat erranik **azpiz** behatzen zidan andereari. Janbattitt Dirassar

Ene gaitzerraileek ustez, Errege Jaunak ni begietan hartua ninduela sinestarazteko, **azpiz** aitzinatu dituzten argudioak baztertu ondoan, iduritzen zait behar ditudala, beste askoren artetik, zenbait arrazoi agertu, uste horren kontrakoa erakuts dezaketenak. Piarres Xarriton

18 ***beso azpi*** (deklinabide atzizkiekin) ik **besazpi**.

Egun batean, **beso azpian** egunkaria eta liburu lodi bat zekarrela itzuli zen aita. Juan Kruz Igerabide

Gero maleta esku batetik bestera aldatu eta **beso azpian** jarri zuen bizarreko gauzen poltsa. Koro Navarro

Beso azpian hartu du eta etxera abiatu gara. Iban Zaldua

Telebista **beso azpian** zuela, berarekin joateko esan zidan, eta saltzailearen etxera itzuli ginen; ohetik atera genuen. Juan Kruz Igerabide

Gizonezko gazte bat azaldu zitzaion zirrituaren barruan, andreari **beso azpitik** indarrez heldu, eta herrestan eramaten hasi zena kioskorantz. Josetxo Azkona

19 ***esku azpitiko*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Hori ere **esku azpitiko** tratuetarako aproposa. ETC-literatura, saiakera

20 ***esku azpiz***

Zorigaiztokoaren familiak lehenagotik borreroaren patrika **esku azpiz** berotua baldin bazuen, ogi puska bat klikatzeko denboran iragaten zen ikusgarria. Aingeru Epaltza

21 *itsaso azpi* ik **itsas azpi**.

22 ***lur azpi*** *(**164** agerraldi, **45** liburu eta **62** artikulutan; orobat **lurrazpi** **72** agerraldi, **21** liburu eta **19** artikulutan) iz* lurrazalaren azpialdea.

Trenbiderik ez dago harribitxizko meatzeetara iristeko, nahiz meatze horiengatik Siberiako alderdi handien **lur azpia** aberatsagoa izan lur gaina baino. Karlos Zabala

Arabako **lur-azpiak** ez dituela bere sekretu guztiak azaldu. Berria - Kultura

Bidaia hartan izan ziren lurrikarak [...] eta horiei esker Charles gazteak bere begiez ikusi ahal izan zituen **lurrazpiak** gora eginda. Edorta Jimenez

Zeruan, lur gainean, **lur azpian** eta itsasoan dauden sorkari guztiei. Elizen arteko biblia

Duela urte batzuk pentsaezinak ziren tokietan ari gara orain bila, bai 2.500 metroko sakoneran itsasoetan zein 6.000 metrora **lur azpian**. Berria - Gaiak

Lurrazpian baina azaletik gertu ur poltsak daudela iradoki dute ereduetako batean. Berria - Gaiak

Lurrazpian ehortzi edo zeruraino igoez gero ere, berak ez ziola huts egingo. Anton Garikano

Mota guztietako bizidunez estali zuen lurgaina, eta **lur azpira** itzuli behar dute hiltzean. Elizen arteko biblia

Lur azpiko trena hartu eta azkenean hirira joan nintzen. Fernando Rey

Lur azpiko petrolio putzuak aurkitzeko. Berria - Gaiak

Horiexek dira **lurrazpiko** etxera sartzeko zazpi ateak. Julen Gabiria

23 ***ohe azpi*** (-n, -ra eta kideko atzizkien ezkerrean) ik **ohepe**.

Azkar, Tito, sar zaitez nire **ohe azpian**, mugi! Jon Maia

Lasterka gora joan eta **ohe azpira** sartu zen. Iñaki Mendiguren

Etxean norbait sartu zela iruditu zitzaidan, eta, jaikirik, armairuetan eta **ohe azpian** begira aritu nintzen. Josu Zabaleta

Petrushkari, berriz, maleta **ohe azpitik** ateratzeko agindu zion. Jose Morales

24 ***oin azpi*** *iz*

Gune txiki batzuk baino ez ditu gorputzak batere hilerik gabeak, hala nola **oin azpiak** eta esku ahurrak. Irene Aldasoro

Brasildarrak **oin azpia** minberatuta daukalako iragan asteburutik. Berria - Kirola

Eguzkiak jotzen zuen lekuetan egurrezko lurzorua bero zegoen, haren **oin-azpiek** sumatu zutenez. Lopez de Arana

Zakurrek **oin azpietan** -horregatik beren urrats hezeak- eta muturrean bakarrik dituzte izerdi guruinak. J.M. Olaizola "Txiliku"

25 ***oin azpi*** (toki atzizkiekin singularrean)

Ez zuten sentitzen lurra **oin azpian**, ez denboraren joana, ezta beren burua ere. Jose Morales

Zapal ezazue **oin azpian**, zatitxo bat ere gera ez dadin! Jose Morales

Euren **oin azpitik**, ibaiak piloteak milikatzen zituen. Lopez de Arana

Hatz, esku-ahur eta **oin azpiko** azal sendoa bero-isolatzaile ona da. Irene Aldasoro

Edozein egunetan lapurrek gure **oin-azpiko** lurra ere eraman dezakete. J.M. Olaizola "Txiliku"

26 ***xingar azpi*** urdaiazpikoa.

Gostu guziendako bazen hauta: ardi gasna, **xingar azpi**, urineko, gibelki, ezti, bixkotxa, Irulegiko arno, bazkal aintzineko, ondoko eta bertze. Herria

Denetan bilatu bazuten ere, ez zuten **xingar azpirik** atxeman, ez eta ere lukainkarik, odolkirik. Eneko Bidegain

Keinka batez, urdeak hil dira aro eztiegia zelarik, batzuetan **xingar azpiek** ez dute gatza behar bezala hartu. Herria

Aurten ere hogoita-hamar bat laborari, urde hazteari ari direnak, hor izanen dira **xingar azpi** eder batzuekin. Herria

27 ***zubi azpi*** *iz* ik **zubipe**.

Txiroen beste egoitza trenbideko **zubi azpia** duzu. Gotzon Garate

Erran dautate, Parisen **zubi azpi** horietan lo egiten dutenek ere berekin badutela [mugikorra], zer gerta ere. Herria

Horietako askok beren borondatez aukeratu omen zuten kale bazter edo **zubi azpietako** bizimodua. Joxean Agirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azpi azpian zegoen (4); **azpi azpiko** (3); **azpi azpitik** (9); **azpi espezieak** (5); **azpi joko** (3); **azpi jokoak** (3); **azpi oharrak** (4); **baina azpi** (3); **baionako xingar azpi** (3); **bi azpi** (3); **da azpi** (3); **edo azpi** (3); **hedabideetako azpi** (3)

azpia jan (4); **azpia jaten** (4)

azpiak ateratzen (3); **azpiak jan** (4); **oin azpiak** (3)

oin azpietan (3)

azpiri landaburu (3); **zunbeltz larrea azpiri** (3)

aho azpiz (4); **azpiz ari** (3); **azpiz ezker** (3)

azpi[2] *iz* abereek bertan lo egin dezaten egiten den iratze, belar edo orbelezko etzauntza.

Hermannek, **azpiak** egiteko pala harturik, ukuiluko simaurretan sartu zuen kirtenaren barreneraino. Anjel Lertxundi

Gogoratzen naiz ukuiluetako **azpiak** ateratzen ari ginen goiz batean pazientzia galdu eta maldizio batean hasi zela, gure kide andaluziarrak harrituta uzteko moduan hasi ere. Bernardo Atxaga

Hor daude piztien gordelekuak, zuloak, habiak eta ganaduaren **azpiak**, bai, baina gauza bat dira esandako horiek eta beste bat oso, ohe zuri garbi epel bigun estalkiduna. Iñaki Segurola

Baina, horrekin batera, ezin zen eztia bildu, ongarria egiteko **azpiak** atera edo artaldea belaira eraman. Pello Salaburu

Azpiak egiteko pala lana, eta asketako sarde lanak amaitu ondoren, Eligio, bere jokoko tokia hartu ordez, lasto pila batean etzatera joan zen. Josu Zabaleta

Idien **azpiak** aldatuta sukaldeko beharretan hasia zela, arrantza entzun zuen Azkaratek. Koldo Izagirre

---

azpialde **1** *iz* azpiko aldea. ik **azpi 8**.

Ahaztu egin zaio Citroënaren **azpialdea** begiratzea, eta pentsatu gabe sartu da barrura. Iban Zaldua

Zubiaren **azpialdean**, Campo Volantineko paseo luzea eta Guardia Zibilaren komandantzia. Unai Iturriaga

Zeren, sasoin hartan, **azpialde** kasik osoa gartzelatzat hartua izan baitzen. Joan Mari Irigoien

Haizearen hats leunak alpapa-hosto meheak jiraka darabiltza, **azpialde** zurbilak bistaratuz, eta soroa goitik behera hotzikaratu da. Itziar Otegi

Eta buru erraldoi karratuaren **azpialdean**, kokots kokotsean, ahoa ikaragarri handia eta haginez betea. Joseba Sarrionandia

Eta zuhaitz baten **azpialdean** tapiz bat zabaldu zuelarik, mutilari hurbiltzeko esan zion. Patxi Zubizarreta

Goi-goian, berriz, teilatuaren **azpialdean**, zortzi medailoi. Txillardegi

2 *pl* begien azpialdeko ubeldurak. **betazpi**.

Gauean bera irteten zen egongelatik azkena, eta biharamun goizean lehenengo iristen zen liburutegira; **betzuloak** zituen, Lupinek bezalaxe, eta negar egiteko zorian zegoela ematen zuen beti. Iñaki Mendiguren

Ispilu borobilak **betzuloak** erakutsi zizkion. Lutxo Egia

Begitarte iluna, aurpegi zurbila eta **betzulo** handiak zituen. Migel Angel Mintegi

Betzulo handiak zituen, baita begi txiki, argi eta erneak, are larregi edaten zuenean ere. Xabier Montoia

Martxa honetan bihar ere **betzulo** beltzak izango dituzu eta aho inguruko zimurrak inoiz baino sakonago. Lourdes Oñederra

Asunek ez du ia lorik egin; buruko min itzela du, eta **betzulo** nabarmenak. Iban Zaldua

Ia ilerik gabe burua, urdindurik bibotea eta **betzulo** more sakonak izanagatik, behin Begoña gaztearen bihotzaz jabetu zen haren aztarnak igarri uste izan zituen inoizko senarrarengan. Xabier Montoia

---

azpiarlo *iz* arlo baten barruko arloa.

Zientziaren Filosofiaren **azpiarlo** berezia denez gero, Biologiaren Filosofiaren kontzeptu eta joera nagusiak aurkeztuko dira sarrera honetan. Askoren artean

---

azpiarrosa *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi, soilik **azpiarrosa maltzur** hitz elkarketan erabiltzen da)*

1 ***azpiarrosa maltzur*** *iz* onddo espeziea.

Nafarroan gehien biltzen den ziza dira ilarrakak (Clitocybe nebularis), baina maiz **azpiarrosa maltzurrekin** (Entoloma lividum) nahasten ditu jendeak. ETC-prentsa

---

azpiartiko *(corpusean ez dago; ETCn **114** agerraldi)* **1** *izond* Artikoaren hegoaldean dagoen Ipar Hemisferioko eskualdea.

Europa, Asia eta Ipar Ameriketako eskualde artiko eta **azpiartikoetan** bizi da udan, ugaltzesasoian. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lurralde **azpiartikoetan** eta Ipar Hemisferioko mendietan bizi da, baita Pirinioak Pirinioetan ere. ETC-entziklopedia

Euskal Herriko eta erregio **azpiartikoko** ferra-saguzarren arteko txikiena da, izen arruntak dioen bezala. ETC-entziklopedia

Pitxartxar burubeltza ("Saxicola torquatus") muscicapidae familiako hegazti Passeriformes paseriformea da, eskualde **azpiartikoan** bizi dena. ETC-entziklopedia

2 ***klima azpiartiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi)*

Klima azpiartiko, klima boreal edo klima azpipolar 50º eta 70º latitudeen artean dagoen klima da, klima kontinentalaren azpimultzo bat osatzen dena. ETC-entziklopedia

Bestetik, klima nagusia **Klima azpiartikoa** da; dena den, 500-600 metro goitiko eremuetan klima polarra gailentzen da. ETC-entziklopedia

Udalerriko klima nagusia **klima azpiartiko** edo subartikoa da eta, ondorioz, tenperatura leunak izaten dira udan, baina neguak hotzak eta luzeak izaten dira. ETC-entziklopedia

---

azpiatal *iz* testuetan, atal bat banatzen den zatietako bakoitza.

Ikus halaber erregelak ataleko azken **azpiatala** eta oharmena ataleko "Oharmena vs. ekoizpena hizkuntz jabekuntzan" **azpiatala**. Lourdes Oñederra

Osatuz izena eman diote material didaktikoari, eta guztira, zazpi liburu dira, bi **azpiataletan** banatuta; orokorra eta pediatria. Berria - Euskal Herria

Bestalde, galdera horien azpian jorra zitezkeen zenbait **azpiatal** ere landu ditugu, ikuspegi garaikide batetik alabaina. Askoren artean

"Speak, memory" izeneko liburuaren zazpigarren ataleko bigarren **azpiatalean**. Edorta Jimenez

Bigarren atalean, pentsamendua, giza auzia, erlijioa, nazionalismoa, euskara eta artea dira **azpiatal** nagusiak. Berria - Kultura

---

azpiatomiko **1** *izond* egituraz atomoa baino maila behekoagoa dena.

Adibidez, justifikatzen denean fenomeno batzuen azalpenik hoberena isotopo erradioaktiboen fisika dela, atomoen eta partikula **azpiatomikoen** arteko erlazio kausalak ere ondorioz justifikatuta daude teoria horretan ere. Askoren artean

Goma jolas **azpiatomikoa**. Berria - Gaiak

2 ***partikula azpiatomiko***

Adibidez, justifikatzen denean fenomeno batzuen azalpenik hoberena isotopo erradioaktiboen fisika dela, atomoen eta **partikula azpiatomikoen** arteko erlazio kausalak ere ondorioz justifikatuta daude teoria horretan ere. Askoren artean

---

azpibanaketa *(corpusean ez dago; ETCn **75** agerraldi)* *iz* sailkapenaz mintzatuz, banaketa baten barruko banaketa.

Gure psikologiak ez du hori ohartu **azpibanaketa** batzuen aurrean atzera egin duenean. ETC-literatura, saiakera

Izakiak espiritualetan eta materialetan orokorki bereizteak hiru adar orokorreko **azpibanaketa** dakar. ETC-literatura, saiakera

Banaketak aurrera egiten duen heinean, gero eta zailagoa da **azpibanaketa** berriak bereiztea. ETC-literatura, saiakera

Badirudi **azpibanaketa** horrek karolinjioen garaitik jaso zuela bultzada handiagoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Arroka ez-detritikoen artean, konposizioa eta formazioa aintzat hartuta, motaren araberako **azpibanaketa** egiten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kieze barrutia ere aipatzen da, hau **azpibanaketa** ez ofizial eta txikiago bat da, normalki enparantza edo leku nabarmen baten kokatua dago, eta izen herrikoi edo informal bat izan ohi du. ETC-entziklopedia

Beren aldetik "community councils" ("erkidegoko barrutiak") barrutiaren barneko **azpibanaketak** ordezkatzen dituzten erakunde informalagoak dira. ETC-entziklopedia

1936ko irailetik 1937 martxora bitartean Eusko Gudarostearen egitura batailoiek osatzen zuten, banaketa edo **azpibanaketarik** gabe. ETC-entziklopedia

Leinu honen **azpibanaketa** egiteko banaketa posible bat baino gehiago daude. ETC-entziklopedia

Dialekto horren **azpibanaketa** nagusia Decies-eko irlandera (Waterford hitz egiten dena) eta gainontzekoen artean dago. ETC-entziklopedia

Yerkes behatokiak Harvarden sailkapenean **azpibanaketa** batzuk txertatzea proposatu zuen azpindizeak erabiliz, adibidez, A1etik A9ra bitartekoak. ETC-entziklopedia

Azpibanaketa honen arabera, Lurra zehazki Alfa eta Beta kuadranteen arteko azken muturreko mugan dago, galaxiaren erdigunetik erdi bide ingurura. ETC-entziklopedia

Brusela-Hiriburua eskualdeak 19 udalerri ditu, Belgikako erdialdeko eskualde horren **azpibanaketa** direnak. ETC-entziklopedia

---

azpibanako *iz* entitate txikiagoko osagaia.

Gogora dezagun alternantzia erregularrek -batez ere bokal artekoek-, oro har erroa eta bereziki **azpibanakoak** atzematea lausotu ez ezik, areagotu egiten dutela atzemate hori. Isabel Arrigain

---

azpibarruti *(corpusean ez dago; ETCn **210** agerraldi) iz* barruti baten barruko barrutia.

-Azkenean dena ateratzen da nola edo hala -esan zion Jacintak bere ahizpari telefonoz geroago, baina ahizpa Mount Perl-eko **azpibarruti** batean zegoen eta ezin zion lagundu. ETC-literatura, saiakera

Bost eskualdeak 14 hautesbarrutitan banatuta daude, eta horiek, berriz, 27 **azpibarrutitan**. ETC-prentsa

Michel Aun jeneralaren gerra zibilaren garaian lehen ministroa izan zen Erreformen Alde zerrendak Kesruan-Jbeil eta Metn **azpibarruti** kristauetako hamasei eserlekuetatik hamabost irabazi ditu. ETC-prentsa

Guztira, 11 hiriburutan, 68 barrutitan eta 23 **azpibarrutitan** gailendu da BDP; besteak beste, Diyarbakir eta Van bezalako probintzia garrantzitsuetan. ETC-prentsa

2004ko erroldaren arabera, 4.403 eta izen bereko "nahiyah" edo **azpibarrutiaren** burua da. ETC-entziklopedia

Batu Apoi Bruneiko Temburong barrutian dagoen mukim edo **azpibarruti** bat da, barrutiaren ekialdean. ETC-entziklopedia

Sanya hiriaren kasua berezia da, hiriak zuzenean agintzen du hiriko **azpibarruti** eta herrixketan, eta erabakiak hartzeko gaitasun mugatua dute **azpibarrutiek**. ETC-entziklopedia

Palembang 16 barruti eta 107 **azpibarrutitan** banatuta dago. ETC-entziklopedia

Eskualde hauek 60 barrutitan ("mintaqah") eta **azpibarrutitan** ("nahia") banatzen dira. ETC-entziklopedia

---

azpibasailu *iz* azpifeudo bateko basailua.

Alde batetik, **azpibasailua** erregeagana itzultzen zen, ez zegoelako basailuari betiko lotuta; eta azpifeudoa ere erregeagana itzultzen zen, feudoa bera zelako, eta ez feudoaren mendeko zerbait. Iñaki Iñurrieta

---

azpibasailutza *iz* azpifeudo bati dagokion basailutza.

Milango bi senadore haiek liburuok idazten zituzten garaiko **azpibasailutzaren** egoera Pepin erregearen garaikoarekin konparatuz gero, ikusiko da azpifeudoek luzeago gorde zutela beren jatorrizko izaera feudoek baino. Iñaki Iñurrieta

---

azpibatzorde *iz* batzorde bat banatzen den lantaldeetako bakoitza.

Etika-komiteek **azpibatzorde** espezializatuak sortuko dituzte. Juan Garzia

Azken urtean, batzorde eta **azpibatzordeetan** lanean aritu eta ekarpenak egin dituztenen isla izango dira ordezkari guztiak. Berria - Harian

Eztarria garbitu zuen klarion-karraskarena bezalako hotsaz, eta jarraitu zuen: -Urte hartako irailean, Sardiniako sorginen **azpibatzorde** batek... Iñaki Mendiguren

Mota guztietako biktimak hartu behar ditu aintzat **azpibatzordeak**, bakoitzak jasandako terrorismo ekintza nork eragina izan den kontuan hartu gabe. Berria - Euskal Herria

---

azpibeltz *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)* **1** *iz/izond* perretxiko espeziea.

Jakin nahi dute nola biltzen diren illrrakak, perretxikoak, esnegorriak, **azpibeltzak** eta besteak, eta ikusi horrela gabeziak, "eta arloak dituen aukerak". ETC-prentsa

Gainerakoak: basoan ziza zuria, karraspina, belarri landua, **azpibeltza**, urbeltza... baina gutxi omen dago oraingoz. ETC-prentsa

Espezie batzuetako ezaugarri nabarmenena da, esaterako **azpibeltzetan**, boletoetan, zenbait poliporoetan edo tripakietan. ETC-entziklopedia

2 *ganga azpibeltz* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Aizto estu zorrotz batez buruak eta hankatxoak mozten ari zitzaien **ganga azpibeltz** babesgabe batzuei. ETC-literatura, saiakera

---

azpibide *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi) iz* beste bide baten azpitik doan bidea; ezkutuko bidea.

Asko dira deabruaren **azpibideak**. ETC-literatura, saiakera

- Erabaki zeuek, sotoak eta **azpibideak** lehendik ere nik baino ezagunago izango baititzuzue. ETC-literatura, saiakera

Isiltasunak zulaturiko **azpibide** ikusezin batetik bidaiatuz, kolpetik, eta, lehenengoz ordura arte, galtzaileen ikuspuntuarekin talka egin zuen Martak. ETC-literatura, saiakera

Komikiaren egileek, ordea, Campionen testuarekin fidelak izaki, ahozko ekarpenak aintzakotzat hartuta inkognita, bide eta **azpibide** batzuk utzi dituzte zabalik. ETC-prentsa

Hitzen osteko puntu eliptikoek soilik dute bilatzen ari naizen halako puntzoi itxura, hedapen sustraiketa, mapan zuganako **azpibideak** marrazteko. ETC-prentsa

---

azpidatzi *iz* azpititulua. ik **azpititulu**.

Gaztelaniazko eta frantsesezko bertsioak ere egin nahi ditu Urkizuk, "originalari **azpidatziak** gehituz". Berria - Kultura

azpidazketa *(corpusean ez dago; ETCn **66** agerraldi)* *iz* ikus-entzunezkoetan, esaten denaren itzulpen edo transkripzioa, eskuarki behealdean agertzen dena. ik **azpititulatze**.

ETBren zenbait gasturen bilakaera 1983 eta 1994 bitartean (bikoizketa eta **azpidazketa**, korrespontsaliak (ENG) eta produkzio zerbitzuak eta enkarguzko produkzioak) ETC-literatura, saiakera

Bi bide nagusi erabili izan dira fikziozko produktuak hizkuntza batetik bestera aldatzeko: **azpidazketa** eta bikoizketa. ETC-literatura, saiakera

Generalitateak **azpidazketaren** gastuak finantzatuko ditu, eta arlo horretan egindako lanaren hizkuntz-kalitatea kontrolatuko du. ETC-prentsa

Hizkuntza ez-hegemonikoetan filmatutako lanak mundura zabaltzeko **azpidazketa** askoz ere egokiagoa da bikoizketa baino, mahai inguruan parte hartu zuten hizlarien ustez. ETC-prentsa

Dudarik gabe, bikoizketarekin alderatuta, ekonomikoki merkeagoa izateaz gain, kulturalki aberatsagoa ere bada **azpidazketa**, jatorrizkoaren soinua errespetatzen duelako eta hizkuntzak ikasten laguntzen duelako. ETC-prentsa

Azpidazketa aipatu dut, itzulpen-modalitateetan ere aldaketa sakonak izan baitira azken hogeita hamar urteotan; ikus-entzunezko itzulpenaren alorrean, esaterako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bikoizketa vs **azpidazketa** gaiari heldu zaio azken atalean, eta literaturan sarri ageri diren argudioak mahairatu dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikus-entzunezko itzulpengintzaren baitako modalitate ezberdinen artean **azpidazketa**, bikoizketa, off ahotsa eta opera eta antzerkirako gainidazketa daude. ETC-entziklopedia

---

azpidialekto *(corpusean ez dago; ETCn **65** agerraldi)* *iz* dialekto baten aldaera.

Kontua zen kostaldeko kobazuloren batean egiten den **azpidialekto** batean ari zitzaidala, eta abiadura bizian. ETC-literatura, saiakera

Alderantziz, nahiz eta herri ugari ez izan, eskimalak eremu zabal-zabalean bizi dira, Alaska eta Canadatik Groenlandia eta Siberiaraino hartzen duena, eta dialekto, **azpidialekto** eta aldaera anitz dituzten zenbait hizkuntza mintzo dira. ETC-literatura, saiakera

Eremu horretan **azpidialekto** bat dago, hegoaldeko katalanera edo iparraldeko valentziera deitzen zaiona. ETC-prentsa

Han solastatzen zen euskara goi nafarrerako **azpidialekto** gisa izendatu zuen Bonapartek. ETC-prentsa

Gaskoiaren sei **azpidialektoen** arteko bereziena kontsideratzen den biarnesak, bestalde, piriniar aragoiera eta katalanarekin kontaktu-gune ugari ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Beraz, dendrograman biltzen den informazioarekin hizkera horiek sei **azpidialektotan** biltzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Asturiera hiru dialektotan banaturik dago: mendebaldekoa, erdialdekoa eta ekialdekoa eta horiek, era berean, zenbait **azpidialektotan**. ETC-entziklopedia

Honetaz gain, dialekto bakoitzaren izaera ez da monolitikoa, eta **azpidialektotan** bana daiteke. ETC-entziklopedia

Bere sailkatze-lanean, hiru multzo handitan zortzi dialekto, hogeita bost **azpidialekto** eta berrogeita hamar barietate bereizi zituen. ETC-entziklopedia

Badaude beste **azpidialekto** batzuk halaber: ahirani, dangi, samavedi, khandeshi eta chitpavani marathera. ETC-entziklopedia

---

azpidiru *iz* ezkutuan ematen den dirua.

Zuzen jokatzen eta egia esaten duenak, bidegabekeriazko irabazirik onartzen ez eta **azpidirurik** jasotzen ez duenak, hilketa-proposamenei jaramonik egiten ez eta txarkeria begi onez ikusten ez duenak. Elizen arteko biblia

---

azpidiziplina *iz* diziplina baten barruko diziplina

Aipatu berri ditudan hiru **azpidiziplina** horiek, modu batera edo bestera, metafisikaren osagai gisa agertuko dira metafisikaren historian. Askoren artean

---

azpiegitura *iz* ageriko egiturari eusten dion oinarria, hura datzan egitura ezkutua.

Baina haiek, oro har, barne-garraioak ziren; herrialdearen garapena bultzatu zuten eta industriaren **azpiegitura** eraikitzeko erabili ziren. Koro Navarro

"Nola-halako" **azpiegitura** bat badago, beraz, baina ezer gutxi Mozanbike osoan 19 milioi lagun bizi direla kontuan hartuta. Berria - Gaiak

Horrela hasi ginen bilerak egiten; hasieran, **azpiegitura** -kontuak konpontzeko, hau da, etxea eta bizibidea nola bilatu, batez ere. Rafa Egiguren

Sendoa da euskararen **azpiegitura** ere. Koldo Zuazo

Auzapezak mandatu erdiko bilduma egin du, bizitegiak, lan postuen egoera, bizitza kulturala, garraioak eta hainbat **azpiegitura** aipatuz. Herria

Euskaltzaindiak lan egiteko **azpiegitura** ederra du, beste erakunde ofizialetan nekez aurki daitekeen **azpiegitura** malgua, eta hori arras gauza ona da. Pello Salaburu

Beste zeregin lodietakoa, mantenimentuarena da: behatokien eta klimatologia hornituko duen **azpiegitura** sarearen zaintza, alegia. Pello Zabala

Gaur egun, "garapena" esanez gero edozein gauza uler dezakegu ia-ia; bai **azpiegitura** handi bat eraikitzea bai indigena masai batek sakelako telefono bat izatea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zenbait **azpiegitura** elektriko, ostera, itxi egingo dira, baina gasezko ziklo konbinatuko lantegi berriekin ordezkatzea erabaki dute. Berria - Ekonomia

Apaiza atxilotu, eta haren bidez atxilotu zuten azpikeriaz ari zen gezurrezko milizianoa ere; eta, falangistek ihes egin bazuten ere, haien **azpiegitura** guztia geratu zen deuseztuta. Inazio Mujika Iraola

Emakumezkoek, **azpiegitura** politikoetatik kanpo edo urruti daudenez, gatazkak konpontzeko proposamen eta konponbide berriak egiteko askatasun osoa dute. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azpiegitura aldetik (9); **azpiegitura arazo** (3); **azpiegitura arazoak** (3); **azpiegitura asko** (4); **azpiegitura bat** (11); **azpiegitura batzuk** (3); **azpiegitura berri** (7); **azpiegitura berria** (5); **azpiegitura berriak** (13); **azpiegitura berrien** (3); **azpiegitura da** (3); **azpiegitura egokia** (8); **azpiegitura egokiak** (4); **azpiegitura eraikitzeko** (3); **azpiegitura erraldoi** (5); **azpiegitura erraldoiak** (3); **azpiegitura eskasak** (4); **azpiegitura falta** (3); **azpiegitura gehiago** (7); **azpiegitura guztiak** (6); **azpiegitura handi** (3); **azpiegitura handiak** (5); **azpiegitura handien** (8); **azpiegitura hobeak** (3); **azpiegitura hori** (4); **azpiegitura horiek** (11); **azpiegitura horrek** (5); **azpiegitura horrekin** (3); **azpiegitura horren** (7); **azpiegitura plan** (3); **azpiegitura publikoak** (3)

beharrezko azpiegitura (3); **bere azpiegitura** (3); **beste azpiegitura** (4); **bezalako azpiegitura** (3); **da azpiegitura** (3); **den azpiegitura** (6); **diren azpiegitura** (6); **diren zenbait azpiegitura** (3); **ditugun azpiegitura** (3); **du azpiegitura** (3); **duen azpiegitura** (13); **dute azpiegitura** (5); **duten azpiegitura** (3); **egiteko azpiegitura** (4); **espainiako azpiegitura idazkari** (3); **etaren azpiegitura** (3); **etarentzat azpiegitura** (3); **garraio azpiegitura** (4); **hainbat azpiegitura** (10); **horrelako azpiegitura** (3); **kirol azpiegitura** (7); **kultur azpiegitura** (5); **ministerioko azpiegitura** (3); **zuten azpiegitura** (3)

azpiegiturak egiteko (4); **azpiegiturak eraikitzeko** (4); **azpiegiturak ere** (3); **azpiegiturak euskal y** (5); **azpiegiturak ez** (6); **azpiegiturak garatzeko** (6); **azpiegiturak hobetzeko** (5); **azpiegiturak oso** (3); **behar diren azpiegiturak** (3); **beharrezko azpiegiturak** (4); **dituen azpiegiturak** (3); **dituzten azpiegiturak** (3); **kultur azpiegiturak** (3)

azpiegiturarik ez (6)

azpiegiturei dagokienez (4)

garraio azpiegiturek (3)

azpiegituren aldetik (3); **azpiegituren aurkako erasoak** (3); **azpiegituren inguruan** (3); **azpiegituren inguruko** (3); **azpiegituren kudeatzailea** (3); **azpiegituren plan** (3); **espainiako trenbide azpiegituren** (3); **garraio azpiegituren** (4); **gipuzkoako bide azpiegituren** (3); **kultur azpiegituren** (3); **petrolio azpiegituren aurkako** (3)

azpiegituretan ere (4)

bide azpiegituretarako diputatuak (4); **espainiako azpiegituretarako estatu** (4); **gipuzkoako bide azpiegituretarako** (4)

azpienplegu *iz* duintasun txikiko edo batere gabeko enplegua.

Merezi du ordea gai honi buruzko hipotesi bat aurreratzea: diru-sarreren gero eta kontzentrazio handiagoaren emaitza bide da emigrazioaren ugariak adierazten duen **azpienplegu** handia. Koro Navarro

---

azpieremu *(corpusean ez dago; ETCn **59** agerraldi) iz* eremu baten barruko eremua.

Eta, laster jabetu nintzenez, magnetismo haren eremuak bazituen bere **azpieremuak** ere, eta horietariko bakoitzari ezaugarri edo tasun jakin batzuk zegozkion. ETC-literatura, saiakera

Espezieen eremuak kontinenteen arabera edo **azpieremu** handien arabera marrazten dituzten mapa geografikoak abstraktuak dira. ETC-literatura, saiakera

Eremuak eta **azpieremuak** bereizteko erabiltzen diren zeinu diakritikoak ere (parentesia, puntua, marra, etab.) zehatz-mehatz azaltzen dira. ETC-literatura, saiakera

Ñabardura txiki bat dago, Bordele bezalako kalitatezko sor-marketan izendapen ezberdinak ez dira **azpieremuak**, ez daudelako azpian. ETC-prentsa

Donostia, esate baterako, bost eremutan banatzen dugu, eta eremu bakoitza, **azpieremu** txikiagotan. ETC-prentsa

Badira, esate baterako, eremu bat bi **azpieremutan**, bata metaketazkoa eta bestea inhibitzailea, banatuta duten kortex-zelulak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Laginketa geruzatuaren xedea da eremu bat aski homogeneo diren hainbat **azpieremutan** zatitzea da betiere **azpieremu** horiek aztertzen ari garen fenomenoarekin zerikusia dutela suposatuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azken kasuan, eremuak bi edo hiru **azpieremu** izan ohi ditu: gorde beharreko benetako balioa, eremuaren izena, eta, zenbait kasutan, eremuaren luzera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Banaketa horretan, Nafarroa Garaiak 7 eremu, 18 **azpieremu** eta 68 eskualde dauzka. ETC-entziklopedia

Kostaldea-barnealdea banaketa ere pertinentea delarik, azkenean **azpieremu** gastronomikoak egiteko orduan mugaketak gutxi gorabehera okzitanieraren dialektoenarekin bat egiten du. ETC-entziklopedia

Hasierako ikertzaile nagusiak Sewall Wright, J. B. S. Haldane eta Ronald Fisher izan ziren, aldi berean genetika kuantitatiboaren **azpieremua** sortu zutenak. ETC-entziklopedia

---

azpierliebe *iz* hondo berdinari buruz gutxi ateratzen den eskultura-lana. ik **baxuerliebe**.

Beheranzko bidea hartu nuen, eta ezponda baten, hiru xiringa jaurtiak zeuden bazterrean, harri zapal bat ikusi nuen gurutze **azpierliebean** zizelatu batez markatua, artikulu hartan esaten zuten moduan. Koldo Izagirre

---

azpierraldoi *(corpusean ez dago; ETCn **49** agerraldi)* **1** *iz/izond* izar mota.

Parametro hauetatik abiatuta, bere masa ebaluatu daiteke, 2,3 eguzki masakoa dena, eta **azpierraldoi** bat baino gehiago sekuentzia nagusiko izar zuri bat dela adierazten dute, 780 milioi urte dituena. ETC-entziklopedia

Behin nukleoko hidrogenoa agortuta, hemendik 5.400 milioi urtera, Eguzkia hedatuko da **azpierraldoi** fasera, eta bere tamaina bikoiztuko du astiro, 500 milioi urte inguruko tartean. ETC-entziklopedia

Azpierraldoi zuri batek eta nano hori batek osatzen duten izar bitar espektroskopiko bat da. ETC-entziklopedia

2 *izar azpierraldoi* *(corpusean ez dago; ETCn **18** agerraldi)*

Izar azpierraldoi bat sekuentzia nagusiko nano bat baino distiratsuagoa den baina izar erraldoiak bezain distiratsua ez den izar mota bat da. ETC-entziklopedia

---

azpieskualde *(corpusean ez dago; ETCn **168** agerraldi) iz* eskualde baten barruko eskualdea.

Are gehiago bereizitako espezieetan, banaketa-eremua eskualdeetan azpibanatuta dago, eta **azpieskualde** horietako bakoitzean forma edo forma-sorta jakin bat bizi da, beste inon ez dagoena. ETC-literatura, saiakera

Hiru **azpieskualde** lotzea: Bergaraldea, Oñati eta Leintz-Aramaio. ETC-prentsa

Pauso horiek pixkanaka emango dira lurralde osoan, eskualde eta **azpieskualdeetako** oreka gordez, betiere. ETC-prentsa

Bertan eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzari osasun-asistentzia plan bat **azpieskualde** honetarako, hornidura mistoko ereduaren alde Lehen Arreta publikoa eta espezialitateak eta ospitalizazioa kontzertatuak egiten duena, Donostia Ospitaleko langileen eskubideak errespetatuz. ETC-prentsa

Izan ere, Gasteizko gobernuak eta Errioxako Jatorri Izen Kontrolatuak 2013ko uztailean publikoki hitzartu zuten **azpieskualdeen** etiketak jartzea. ETC-prentsa

Kasurako, Erribera hartuko duen eskualdea sortzea proposatu diete, ondoren bi **azpieskualdetan** banatzeko. ETC-prentsa

Hezkuntza Bereziko prestazioei buruz irizpide berberak konpartitzen dituzten eskualdeko elkarte edo herrialdeko erakundeek elkarrekin jardun dezakete eskualdeko edo **azpieskualdekoak** diren eta jadanik existitzen diren kooperazio mekanismoen babespean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Murrizketa gehigarri horiek egingarritasun-eskualdea zatitzen dute **azpieskualde** osagarrietan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horiek denak kontuan hartuta, komeni da eremu hori hiru **azpieskualde** oso bereizitan banatzea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Handiagoa den Uribe eskualdearen **azpieskualdetzat** jo ohi da. ETC-entziklopedia

Garaziko Hergarai **azpieskualdekoak**: buru beroak. ETC-entziklopedia

---

azpiespazio *(corpusean ez dago; ETCn 1.**184** agerraldi)* **1** *iz* matematikan, espazio baten azpimultzoa, espazioaren ezaugarri berberak dituena.

Hosto-adabegi batek objektu kopuru jakin bat bakarrik erakuts dezakeenez, algoritmoak behar dira espazioa **azpiespazio** laukizuzenetan zatitzeko, **azpiespazio** horiek objektuak bilduko dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eragile lineal bat hura **azpiespazio** txikietara murriztuz aztertuta, bektore propioak ondorioztatzen dira, kapitulu honen hasierako partean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Partiketa honi lotuta, dimentsio nituko test- eta saiakera- **azpiespazio** egokiak aukeratu ahal dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aurreko bi baldintzetatik ondorioztatzen da sistema bateragarri indeterminatu baten soluzioen multzoa **azpiespazio** bektoriala dela. Eta **azpiespazio** bektorial horren dimentsioa 0 autobalioaren anizkoiztasunaren berdina izango da. ETC-entziklopedia

Erabilienak topologia **azpiespazioak**, biderkadura espazioak edota zatidura espazioak dira. ETC-entziklopedia

f funtzio injektibo injektiboa bada, topologia hori kanonikoki identifika daiteke S-ren **azpiespazio** topologiarekin, X-ren azpimultzotzat hartuz. ETC-entziklopedia

Bi dimentsio: rg **azpiespazioa**, xy **azpiespazioa**, etab. ETC-entziklopedia

Esaten da A=a F eta B=b G paraleloak direla, F eta G Eren **azpiespazio** bektorialak izanda, baldin eta soilik baldin F Gn badago edo G Fn badago, A eta B Vren azpialdaerak izanik. ETC-entziklopedia

2 *azpiespazio bektorial* *(corpusean ez dago; ETCn **26** agerraldi)*

Batura zuzena egitura aljebraiko baten (talde abeldar, bektore espazio, modulu...) deskonposizioa da bi azpiegitura aljebraikoren (azpitalde, **azpiespazio bektorial**, azpimodulu...) batuketa gisa. ETC-entziklopedia

Eta **azpiespazio bektorial** horren dimentsioa 0 autobalioaren anizkoiztasunaren berdina izango da. ETC-entziklopedia

Matematikari batzuek azpiespazio lineal edo **azpiespazio bektorial** terminoak erabiltzen dituzte; azpiespazio terminoaren esanahi berbera dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *azpiespazio topologia* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Espazio topologiko baten azpimultzo bakoitzari **azpiespazio topologia** elkartu ahal zaio. **Azpiespazio topologia** horretan multzo irekiak espazio handiko irekien eta azpimultzoaren arteko ebakidurak dira. ETC-entziklopedia

---

azpiespezie *(corpusean ez dago; ETCn **792** agerraldi)* *iz* espezie baten barruko espeziea.

Emakumeak ez dira ez arraza bera, eta ez arrazaren erdia ere: ugaldu beste helbururik ez duen **azpiespezie** bat dira. ETC-literatura, saiakera

Esan dezagun, halaber, espezie esferikoaren **azpiespezie** bat ere badela: espazio eliptikoa. ETC-literatura, saiakera

Era berean, gure espezieak, Homo sapiensak, hainbat **azpiespezie** (arraza) izan zitzakeen nabarmen desberdinak ziren gene-gaitasunak zituztenak. ETC-literatura, saiakera

10.000 urteetan, ehunka mila urte lehenago bereizi ziren Indiako eta Eurasiaren mendebaldeko **azpiespezie** basatietatik abiatuta. ETC-literatura, saiakera

Orain gutxi arte Afrikako elefante guztiak espezie bereko kideak zirela uste zen, **azpiespezietan** baino ezin zirela bereizi. ETC-prentsa

Kalamua Cannabis sativa generokoa da, eta hiru **azpiespezie** daude: sativa, indica eta ruderalis. ETC-prentsa

Donostian, Urgullen eta Santa Klara uhartean, sugandila **azpiespezie** berezkoa dagoela diote zenbait adituk, eta orain EHU ikerketa genetikoa egiten ari da, dudak argitzeko. ETC-prentsa

Erresuma Batuko hainbat ikerketatarako erakundek galtzear dagoen errinozero zuriaren **azpiespezie** bat klonatzeko asmoa agertu dute. ETC-prentsa

Naturzale denak gozatu zirraragarria hartuko du segururik, hauengana hurbildu eta, espezie eta **azpiespezie** bakoitzaren bereizgarriak gidarik onenean legez islaturik aurkitzean. ETC-prentsa

Arteen artean, adibidez, mikatza da Quercus ilexsubsp ilex **azpiespeziearen** alea, gozoa aldiz Quercus ilex subsp ballota **azpiespeziearena**. ETC-prentsa

Adibidez, arto-barietate modernoak Zea generoko teosinte izeneko **azpiespezie** baten ondorengo etxekotuak dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Alaskako altzea edo altze erraldoia ("Alces alces gigas") altzearen **azpiespezie** bat da. ETC-entziklopedia

Azpiespezie ugari dauden heinean, kannabinoide hauen ehunekoak oso aldakorrak dira, baina sustantzia nagusia Tetrahidrocannabinol THC edo delta-9-tetrahidrokanabinol izan ohi da. ETC-entziklopedia

Espezieak **azpiespezietan** bana daitezke, toki espezifikoetara moldatutako berezitasunak dituzten organismo-multzoak identifikatzen badira. ETC-entziklopedia

---

azpiestazio 1 *iz* argindarraren garraiorako erabiltzen den eraikina.

Teknologia horri esker, ezagutzen ditugun **azpiestazioak** baino hamar bider txikiagoa izango da Boroakoa. Berria - Euskal Herria

Hornikuntza elektrikoa hobetzeko, dena den, Ereño eta Ean transformazio eta banaketako **azpiestazio** berri bi egingo dituzte; eta, aldi berean, Gernika-Sukarrieta tentsio ertaineko linea lurperatuko dute. Berria - Euskal Herria

Perez Rubalcabak horixe gogorarazi zuen ikerketa batzordean: "Atentatu indiskriminatua egin nahi zutela ez da egia"; polizi ikerketaren arabera "Madrilgo industrialde batean **azpiestazio** elektriko bat dinamitatu nahi zuten". Berria - Harian

2 *azpiestazio elektriko*

Perez Rubalcabak horixe gogorarazi zuen ikerketa batzordean: "Atentatu indiskriminatua egin nahi zutela ez da egia»; polizi ikerketaren arabera "Madrilgo industrialde batean **azpiestazio elektriko** bat dinamitatu nahi zuten». Berria - Harian

---

azpieuskalki *iz* euskalki baten barnean bereizten diren hizkera multzoetako bakoitza.

Dena dela eta aldeak alde, mendebal barruan eremu edo **azpieuskalki** bi badirela esan dezakegu: sartaldea eta sortaldea deituko ditudanak. Koldo Zuazo

Eta badakigu beti egingo diogula traizio hezurmamitzen ikusi dugun pertsonaiari, hain lotua euskalki, **azpieuskalki** edo herri hizkera zehatz batera, hain errukarria. Iñigo Aranbarri

Debagoienako **azpieuskalkietan** haurrentzako lau ipuin bildu ditu Goienak, lehengo ipuin zaharrak dira laurak, eta eraberriturik ekarri dituzte. Berria - Kultura

---

azpifamilia *(corpusean ez dago; ETCn **4959** agerraldi)* *iz* familia baten barruko familia.

Era berean, familia horiek hainbat **azpifamiliatan** banatzen dira, eta, hain zuzen ere, 43 **azpifamilia** daude. ETC-prentsa

Getxon hitz egiten diren hizkuntza asko familia honetakoak dira, eta familia hain denez handia, **azpifamiliatan** ere banatzen dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mutur batean daude mandarina eta horren ahaideak, txino-tibetar hizkuntza-familiaren txinatar **azpifamilia** osatzen dutenak; Txinaren iparraldetik hegoaldera, etenik gabe daude banaturik. ETC-zientzia, zuzenbidea

5.2.7 atalean aipatu dugu bi teknologia-familia handi daudela (bipolarra eta CMOS), eta horietako bakoitzak **azpifamilia** asko ditu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Dikotiledoneo gehienek fitokromo-geneen lau **azpifamilia** dituzte (PHYA, PHYB/D, PHYC/F eta PHYE), baina monokotiledoneoek hiru bakarrik (PHYA, PHYB eta PHYC). ETC-zientzia, zuzenbidea

Sailkapen batzuetan Caenolestidaeren barruan sailkatzen da, **azpifamilia** gisa. ETC-entziklopedia

Karraskarien barruko Sigmodontinae **azpifamilia** eta Cricetidae familian sailkatuta dago. ETC-entziklopedia

Calamariinae Colubridae familiako narrasti **azpifamilia** bat da. Asian bizi dira. ETC-entziklopedia

2012ra arte Neobalenidae familiako ordezkari bakarra zela uste zen, baina urte horretatik aurrera Cetotheriidae familian sailkatzen da, eta Neobaleninae **azpifamilian**. ETC-entziklopedia

"Cebus" edo tximino kaputxino arinak Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako Platyrrhini taldeko primate genero bat da, tximino kaputxinoen **azpifamiliako** kideak (Cebinae). ETC-entziklopedia

Hominidae familiaren barruko bi **azpifamilietako** bat da, primate Catarrhiniz osatua. ETC-entziklopedia

---

azpifeudo *iz* feudoa baino maila baxuagoko lurraldea.

Feudoen oinordekotzak eta **azpifeudoak** orokorki ezartzeak itzali egin zuten gobernu politikoa, eta gobernu feudala ekarri zuten. Iñaki Iñurrieta

---

azpifonemiko *izond* fonemena baino maila baxuagokoa.

Kontua da, ordea, **azpifonemikoa** izanik, egoera normalean, hitz ezagunak entzutean, ez diogula antzematen. Lourdes Oñederra

---

azpigai *(ETCn **75** agerraldi, horietatik **39** azken sei urteetan)* *iz* gai baten barruko gaia.

Hogei pertsona inguruk dute parte hartu, **azpigai** batzuetan aditu direnek lagundu gaituzte. Berria - Mundua

Goodmanen ustez, irudikapenaren gaia bera ere ez da guztiz garrantzizkoa, zeren irudikapenaren gai hori baino askoz ere gai zabalagoa eta oinarrizkoagoa den denotazioaren **azpigai** bat baizik ez baita, izatez. Josu Zabaleta

---

azpigarapen *iz* hainbait lurraldetan, ekononia aski garatu gabe eta indar produktiboak gutxi baliatuak diren egoera.

Garatze bidean dauden herrialdeetan, ingurumeneko arazo gehienen eragilea **azpigarapena** da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ekonomia **azpigarapena**, aginte eta agintarien ustelkeria, gerrak, eta beste hainbat eta hainbat gaitzez gain, osasun egoera ikaragarri bat pairatzen dute gaur egun Afrikako herrialde gehienek. Berria - Mundua

Beti bezala, saiatu naiz azaltzen hori guztia, besteak beste, industri iraultza sendorik ez izatearen ondorio dela, **azpigarapen** kapitalistarena alegia; hemendik berrogei edo ehun urtetara ikusiko dugula zertan diren semaforo absurdoak eta balizko gizarte-elkartasun hura, eta, gainera, ea ahaztu duten diktadura bat dela, eta 36ko gerra. Iban Zaldua

Arabiar munduaren modernitatea agerian uzteko asmoa dute topaketek, Erasoren arabera: **azpigarapena**, fanatismoa, indarkeria eta kultur gabezia dela dioen diskurtsoaren aurrean, bestelako errealitatea erakutsi behar dugu. Berria - Kultura

---

azpigaratu 1 *izond* garapen ekonomiko eskasekoa den lurraldea edo pertsona.

Interesgarri iritzi nion, ni neu ere herrialde **azpigaratuen** aurrerabideaz arduratzen bainaiz lanbidez. Joxe Austin Arrieta

Hori gutxi balitz, kimika industriek garapen bidean edo **azpigaratuta** dauden herrialdeetara jo dute, berton talde ekologistek eta gobernuak eginiko presioa txikiagoa delako Aldi berean, zentro industrializatua eta periferia **azpigaratua** aurrez aurre jartzen zituzten azterlanak guztiz baliogabetuak geratu ziren Ekialde Urrunaren industria-garapena zela-eta. Berria - Ekonomia

Eta demografiari loturiko arazoa izugarria da herrialde **azpigaratuetan**. Iñaki Heras

2 *herrialde azpigaratu*

Gaur egun, munduko **herrialde azpigaratuen** Barne Produktu Gordinak batzen badira (600 miloi biztanlerenak), ez da nahikoa munduko hiru pertsona aberatsenen ondasun kopurura iristeko. Iñaki Heras

Eta demografiari loturiko arazoa izugarria da **herrialde azpigaratuetan**. Iñaki Heras

Interesgarri iritzi nion, ni neu ere **herrialde azpigaratuen** aurrerabideaz arduratzen bainaiz lanbidez. Joxe Austin Arrieta

---

azpigarri *iz* ik **azpi**^{2}. abereei azpiak egiteko erabiltzen den iratze, belar, orbel edo kidekoa.

Ustela duzu **azpigarri**, harrak estalki. Elizen arteko biblia

---

azpigenero *iz* arte- edo literatura-genero bat banatzen den multzo berezietako bakoitza.

Altmanek beti izan ditu gogoko pertsonaia eta istorio txiki ugariz osatutako filmak, eta lan honekin joera hori gailurrera eraman zuen eta **azpigenero** berri bat asmatu. Berria - Kultura

Gai baten araberako lanak eskatzen dira, edo **azpigenero** baten araberakoak, batik bat nobela historikoak. Berria - Kultura

---

azpigeruza *iz* geruza baten barruko geruza.

Azkeneko atalean Haeckel-en tankerako biologistaren bati (eta "xxxx" hori gizakiaren barnezola sakoneneko **azpigeruza** da). Joxe Azurmendi

---

azpigizaki *iz* garapenean gizakiaren mailara iritsi ez den izakia.

Bizitza soziala gizadia bera baino zaharragoa da; intsektu eta animalien artean aurkitu izan da, eta **azpigizakia** gizakiaren mailara gizarte primitiboen babespean igoko zen, edozein zibilizaziok orain arte lortu duena baino aurrerapen handiagoa. Iñaki Mendiguren

---

azpigona ik **azpiko 4**.

---

azpiindize *(corpusean ez dago; ETCn **332** agerraldi) iz* beste baten eskuinean beherago ezartzen den letra edo zenbakia; indize baten barruko indizea.

Kontuan hartu **azpiindize** berberak erabiliko ditugula konpresiorako zein hedapenerako. ETC-zientzia, zuzenbidea

Antisimetriaren kasuan, bi **azpiindize** berdineko osagaiak nuluak dira, eta **azpiindize** desberdineko osagaiek balio bereko baina aurkako zeinuko bikoteak eratzen dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bi zenbaki horiek elementuaren ezkerrean idazten dira, **azpiindize** eta goi-indize gisa, hurrenez hurren. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azpiindize batek eremu bateko bit bat aukeratzeko balio du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Geroago, arrazoi berezirik gabe, zenbaki hori **azpiindize** gisa adieraztea ekarri zuen modak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azpiindize modura idatzita doazen informazio gehigarriak letrakera arruntez idazten dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azpiindize positiboa duten koefizienteak zenbakiaren osoko zatiari dagozkio, eta **azpiindize** negatiboa dutenak, berriz, zati dezimalari. ETC-zientzia, zuzenbidea

Erreferentziakidetasuna adierazteko, i eta j azpiindizeak erabiltzen ditugu; pertsona edo erreferente berari erreferentzia egiten dioten elementuek **azpiindize** bera izango dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Mikotoxina ezagunenak dira eta molekula ezberdinak dira, letra batekin eta **azpiindize** batekin izendatua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lehena goiindize formatuarekin eta bigarrena **azpiindize** formatuarekin idazten da, gainjarritak eta ikurra baino lehen. ETC-entziklopedia

Egungo formula molekularraren gaiari dagokionez, lege honi zor diogu konposatu bakoitzari jar diezazkiogun **azpiindize** zehatz edo finkoak. ETC-entziklopedia

---

azpijale *izond* pertsonez mintzatuz, azpijanean aritzen dena.

Gainera koldarra dun, **azpijalea** eta berekoia. Anton Garikano

Har aldra bat zaio, politikari **azpijale** antzo, batzartu. Juan Garzia

---

azpijan 1 *iz* azpijokoa.

Orain garbi ikusten zen zergatik egin zien **azpijana** hara itzultzeko aukera guztiei. Xabier Olarra

Guztiok entzuna dugu Mexikoko poliziek gutxi irabazten dutela eta, diru pixka bat eskuratzeko, **azpijanera** jotzen dutela. Gotzon Garate

2 ***azpijana egin*** azpijokoa egin.

Ikustun-nortasuna ukatu, edo hari **azpijana egiten** zion, eta Virgilen erantzuna, onez onekoa, itsu gisa portatzea edo are itsu bihurtzea izaten zen. Xabier Olarra

Orduan enperadorea indarrez sartu zen Aita santuaren lurraldeetan eta, **azpijana eginez**, erromatar herria matxinatzera bultzatu zuen. Askoren artean

3 ***azpijanean*** *adlag* azpijokoa egiten.

Pertsona maltzurra, makurra, gaiztoa, **azpijanean** ari bada, sugearen antzekoa dela esaten dugu. Gotzon Garate

Bapo aritu da **azpijanean** Grosrouvre BERE matematikan ni murgilarazteko! Jon Muñoz

---

azpijoko *iz* isileko egite edo jardun makurra, gehienetan inoren kaltean egiten dena. ik**azpijan**; **azpilan**; **azpikeria**.

Antze hori ez litzateke, alabaina, **azpijokoetan** nahasten den gizonaren hezibidean irakatsi behar? Jon Muñoz

Instituzio demokratikoak izan ziren Erdi Aroan, baina ez puruak, bazeuden trikimailuak, amarruak, azpilanak, **azpijokoak**, satorrak; eta kontrapuntu hori eman gura izan dut eleberrian: Sebastian bat-batean konturatzen da kofradiaren ekanduak ez direla berak uste moduan betetzen. Markos Zapiain

Biharamunean printzea esnatu, eta neska desagertu zela ikusi zuelarik, aita **azpijokoan** ibili zitzaiola pentsatu zuen. Patxi Zubizarreta

Mafiak, hilketak, droga, prostituzioa, polizia ustelak, bortxaz edo **azpijokoz** egindako salerosketak, bahiketak... Gotzon Garate

Baina hara non Nizamen kontra **azpijokoan** hasi zen Hassam, etengabeko makurkerian hari bere lekua kentzeko. Jon Muñoz

Zakur sabel-zuri horrek gutitarik ez zidan **azpijoko** egin. Aingeru Epaltza

Zakur sabel-zuri horrek gutitarik ez zidan **azpijoko** egin. Aingeru Epaltza

Ikastola sare publikoan sartzearen aldekoen eta kontrakoen eztabaidak ika-mika bihurtu ziren aurrena, **azpijoko** gero. Joxerra Garzia

Zure **azpijokoa** ez nuela ikusten uste al duzu? Monika Etxebarria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azpijoko bat** (9); **azpijoko politikoa** (4)
> **azpijokoa egin** (6); **azpijokoa salatu** (4)
> **azpijokoan ari** (8)
> **azpijokoren bat** (5)

---

azpikalde ik **azpialde**.

---

azpikari *iz* azpilanean ari den pertsona.

Haien ondoan, ezpainak luzaturik besoak zabaltzen dituztenean, bihotza taupadaka besarkatzen dituzunean, haien laztan samurraren gozamen sentsual gozagarria dastatzen denean, ondo dakizu kateme bat duzula, erpeak eta letaginak dituen kateme bat, kateme doilor, **azpikari**, maitale etsai bat, musuez aspertzen denean hozka egingo duena. Josu Zabaleta

Doi bat laketua zitzaidan hura neure mendeko **azpikari** bilakatzea bederen, eta bigarren mailako rolak joka zitzan nire mendean orobat hartzea. Jon Muñoz

---

azpikate *iz* kate baten barruko katea.

Lanabesaren egoera, ekoitzi berri duen kateak erabakitzen du oso-osoan (hots, eratorpenaren azken urratsak), eta hauxe da garrantzizko arazoa; zehatzago esanez, F atalaren "ezkerretara" dauden Xi elementuetako batek erabakitzen du hurrengo egoera eta elementu hori ekoiztu den aurreko katearen **azpikatea** da. Itziar Laka

---

azpikategoria *(corpusean ez dago; ETCn **140** agerraldi) iz* kategoria baten mendeko kategoria.

Eta alferrikakoa da totalitarismoa askatzen saiatzea hura **azpikategorietan** zatituz (totalitarismo faxistaren eta komunistaren arteko aldeak nabarmenduz). ETC-literatura, saiakera

Badela ez dakizun kategoria bat baitago; hartaz entzun izan bazenu, jakingo zenuke ez dela sexu txarraren **azpikategoria** huts bat; sexu tristea da. ETC-literatura, saiakera

Lurralde zehatz batean dauden hala nazioak nola finkatutako etniak unitate horren **azpikategoriak** izango lirateke. ETC-literatura, saiakera

Littlewooden "marko metodologiko" hori, alabaina, malgutasunez erabili behar da, ze, finean, "kategoria eta **azpikategoria** horien artean ez dago hain muga zehatzik". ETC-literatura, saiakera

Beste batzuek **azpikategoriak** erabiltzearen alde egin dute, hala nola familiarteko zaintzak, zaintza profanoak, etxeko zaintzak... ETC-literatura, saiakera

Hasteko, era askotako dokumentuak daude: liburuak, liburuxkak, aldizkariak, soinuzko dokumentuak, mikroformak... kategoria bakoitzaren barruan mota asko eta askotako **azpikategoriak** aurki ditzakegularik. ETC-literatura, saiakera

Horrek guztiak **azpikategoria** batean kokatzen ditu prostitutak. ETC-prentsa

Aldi berean, kategoria bakoitzak hainbat **azpikategoria** ditu. ETC-prentsa

Noski, kategoriekin batera **azpikategoriak** ere sortzen goaz, harreman-arbola moduko bat osatu arte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horietan dokumentu elektronikoen oso antzekoak edo **azpikategoriak** diren figurak aurkitzen dira, baina haien euskarria dela-eta (gehienetan berme handiagoarekin), balorazioan kalteak jasan ohi dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Ramosek sailkapena egitean irri ipuinaren **azpikategoriatzat** jotzen du txistea. ETC-zientzia, zuzenbidea

Kategoria horretan lau **azpikategoria** daude: bela, itsasontziak, kirol-portuak eta nabigazioa, eta guztira 34 artikulu daude. ETC-zientzia, zuzenbidea

Elkarrizketaren gidoiaren arabera, elkarrizketaren edukia kategoria eta **azpikategoriatan** sailkatu da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Batetik hamar artekoei, mikro-enpresak ere deitzen zazkie, **azpikategoria** bezala. ETC-entziklopedia

Lehiaketak emakumezko eta gizonezko kategorietan banatzen dira eta, aldi berean, gorputzaren pisuaren araberako **azpikategoriak** daude. ETC-entziklopedia

Haizezko musika tresna bezala sailkatua dago teklatuzko musika tresnen kategorian, baita intsuflatutako haizezko **azpikategorian** ere, akordeoia eta armonioarekin batera. ETC-entziklopedia

Tumore zelulen arabera, osteosarkomak, **azpikategoriatan** sailkatu daitezke. ETC-entziklopedia

---

azpikategorizatu, azpikategoriza, azpikategorizatzen *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* du *ad* azpikategorien arabera antolatu.

Garai batean, buruak osagarria **azpikategorizatzen** zuela genioen, badaezpada, irakurleren bati burura etorriko balitzaio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azken honetan aditza **azpikategorizatu** egiten da SAT eta VAL atributuen bidez. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azpikategorizatzaile *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1) iz* azpikategorizatzen duena.

Beste aldetik, normalean dagokion lekutik kanpo geratu den osagaia bere **azpikategorizatzaileak** (aditzak esaterako) ematen dion posizioan integratu behar da; hau da, perpausean jatorriz dagokion lekuan ipini behar da interpretazio semantiko zuzena gerta dadin eta egiturak zentzua izan dezan. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azpikategorizazio *(corpusean ez dago; ETCn 19 agerraldi) iz* azpikategorizatzea.

Oinarriak eta tresna orokorrak garatzen dituzten neurrian horretan sentitzen dute behar handiena: Erreferentzia-corpus zabal, landu eta publiko bat, analizatzaile morfologiko, sintaktiko eta semantiko orokorrak eta horiek eraiki ahal izateko hainbat lan linguistiko sakon: euskararen sare semantikoa, aditzaren **azpikategorizazio** osoa... ETC-prentsa

Hauen tratamendu automatikoak **azpikategorizazioa** modu sistematikoan landuta izatea eskatzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Aditzaren esanahiaren barruan haren **azpikategorizazio** sintaktikoa (aditza zein elementu sintaktikorekin edo zein 'argumenturekin' konbinatzen den) eta haren rol tematikoak daude (aditzaren eta haren argumentuen arteko erlazio semantikoak). ETC-zientzia, zuzenbidea

(2004): Aditz-**azpikategorizazioaren** azterketa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azpikategorizazioan (SUBCAT), sub jektuarekin kasua ergatiboa dela, ob jektuarena absolutiboa eta zehar ob jektuarena datiboa dela adierazten da. ETC-zientzia, zuzenbidea

[...]) legeaz arituko naiz; bigarrenik, aditz-komunztadurarekin loturiko bi kasu aztertuko ditut (objektu plurala eta datiboa); ondoren, erlatibozko adizkien morfologiazko aldeak aipatuko ditut; bestetik, ezeztapenaren eta aditzaren arteko elkarreragina erakusten duten ezaugarriak izango ditut hizpide; azkenik, utziren erregimenaren eta **azpikategorizazioaren** aldaerak azalduko ditut. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azpikategorizazio hau, ordea, lan honen eremutik kanpo dago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala, lexiko konputazional sendoko sarrerek informazio morfologikoa (kategoria/azpikategoria), sintaktikoa (adib. **azpikategorizazioa**) eta semantikoa (adibidez, hautapen-murriztapenak) izan ohi dute. ETC-entziklopedia

---

azpikeria *iz* ezkutuko edo isileko egite edo jardun makurra. ik**azpijoko**; **azpijan**; **azpilan**.

Baina geldiro-geldiro, maltzurki, **azpikeriaz**, sudurra piztu zitzaion. Josu Zabaleta

Azpikeria agerian geratu zenean, gerra abian zen eta hildakoak hamarna milaka kontatzen ziren. Txema Ramirez de la Piscina

Elizara galanki joan, baina gero **azpikeriaz** hiltzen dute. Koro Navarro

Velenok **azpikeriaz** jokatuz iletik tira egin nahi zidan, baina nik gogor estutu eta hormaren kontra bultzatu nuen. Pello Lizarralde

-Blackhead laguna, uste dut, hiritarra naizen aldetik, udala eroskeriatik, ustelkeriatik eta **azpikeriatik** garbitzen lagundu behar dudala. Lopez de Arana

Zuen betebeharrak zerrendatzen ditu, etsaiaren borroka-bide eta **azpikeriak** nahiz ahuleziak. Xabier Montoia

Zertarako erantzun ze ordu den galdetuko dizunari, zertarako lagundu eroritako agureari zutitzen, zertarako azaldu inori estaziora nola heldu, **azpikeria** bat izan daiteke, tranpa bat, Tome Coca Cola. Joseba Sarrionandia

Gainera, **azpikeriak** eta trapukeriak erabiliz guretarrak bota berriak zituzten udaletxetik, eta etsaiarentzat kristoren mauka izango zen istilu haren berri zabaldu izan balitz. Xabier Mendiguren Elizegi

Amarru eta **azpikerietan** iaioa, eta zalantzarik gabe gezurtia ere bai, edonongo nekazariak bezala. Oskar Arana

Maitale sutsu eta irudimen handikoek irentsi egiten dute ahoan isuritako hazia, eta horrela samurki gozatzen dute elkarren likore zoragarri horiek barneratzeak emandako atsegin likitsaz, isurkin horiek ohiko helmugetatik **azpikeriaz** desbideratu ondoren. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta buruzagien artean antzematen nuen hanka-traben eta **azpikerien** ziztrinkeriak azkartu egiten zuen ene mesfidantza hazkorra. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azpikeria salatu** (3)
> **azpikeriaren bat** (3)
> **azpikeriaz eta ankerkeriaz** (3)

---

azpiki *(corpusean ez dago; ETCn 8 agerraldi) iz* abereen izterreko haragia.

Abereak direla-eta beko gorputz adarraren lehen zatiari izterrari hala deritzo: urdazpi, ahariazpi, **azpiki**, azpizun. ETC-literatura, saiakera

Jaungoiko maitea!, goseak derrepente hilda egon behar dute!, eta zure arkume **azpikia** auskalo nola ote dagoen honezkero, zeharo lehortua, baldinbetan, hainbeste itxaron eta gero. ETC-literatura, saiakera

Ez nuen hartu nahi ukan Jo-k utzi nahi zuen haragi partea, bainan **azpiki** puska bat eman zautan erranez bere etxolara gomitatzen gintuela, hiru euskaldunak, hor apaitru bat ona elkarrekin egiteko. ETC-literatura, saiakera

Gainean, dozenaka eta prest, hostore-pateak eta haragi-terrinak, izokinak, lutxoak, amuarrainak, abakandoak, bildots **azpikiak** adarrezko eta zilarrezko heldulekuekin apainduta, erbi eta galeperrak, basurde lurruntsuak, errotarrien tamainako gaztak eta botilen armada osoak. ETC-literatura, saiakera

Baina, batean Regimbart athera berria zen; bertze batean jinen zen, behar bada; heren batean, bazen sei ilabete etzela ikusia; bertze nunbait manatua zuen, atzo, **azpiki** bat ebiakoitzeko. ETC-literatura, saiakera

---

azpiklase *(corpusean ez dago; ETCn 469 agerraldi) iz* klase baten barruko klasea.

Ikusten dugu, gure eguneroko bizitzan, konkistaturiko herrietako batzuek **azpiklase** bat osatzen jarraitzen dutela konkista edo esklaboen inportazioa gertatu zenetik mendetara. ETC-literatura, saiakera

Zeina, orotan harturik, mugitzen ari den mundu fisikoa baita, eta mugitzen diren objektuen artean bada **azpiklase** berezi bat, organismo bizidunak alegia. ETC-literatura, saiakera

Beraz, munduko populazioaren %40 bizirik irauten saiatzen dira egunero, "**azpiklase**" bat osatzen dute. ETC-prentsa

Finantza zentroetako xaxatzaileen aurka altxatu beharrean, **azpiklase** nazional berriek bat egiten dute muturreko eskuinarekin, eta bertan adore ematen zaie etorkinek eta iheslariek osatutako **azpiklase** globalaren aurka altxa daitezen. ETC-prentsa

Alegia, matematikoki, baina modu orokor batean, biztanleriaren "masa" edo "gehiengotzat" jotzen den **azpiklase** zehatz bateko kide bakoitzak dauzkan asmoen multzoa izan behar al du asmo konstituzionalak? ETC-zientzia, zuzenbidea

Azpiklase horiek ezberdinak dira, genetikari, egiturari eta funtzioari dagokienez. ETC-zientzia, zuzenbidea

Klase berria maila txikiagokoa da, eta **azpiklase** edo ume deritzo. ETC-zientzia, zuzenbidea

Klase eta **azpiklase** bakoitzak bere rolak ditu eta, ondorioz, VN-n aditzaren argumentu berari rol bat baino gehiago esleitzen zaizkio askotan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bigarrenean, berriz, umeari elementu multzo bat erakusten zaio -adibidez, loreak (tulipak eta nartzisoak)-, eta, ondoren, galdetzen zaio ea ba ote den **azpiklase** horretako (tulipanak) kide gehiago edo klase horretako (loreak) elementu gehiago. ETC-zientzia, zuzenbidea

Agaricomycetidae Basidiomycota filumeko perretxikoen **azpiklase** bat da. ETC-entziklopedia

DES hirukoitzak ez du zifraketa anizkoitza jarraitzen, bere **azpiklase** guztiak ez direlako independenteak. ETC-entziklopedia

Azpiklase honi "Granny" Smith izena eman zitzaion lehen aldiz landatu zuen emakumearen omenez. ETC-entziklopedia

---

azpiko 1 *izond* azpian dagoena.

Isiltasunaren urratu bakarra ere handixetik heldu zen: ohe zaharraren **azpiko** malgukien negar etena, gainean inor bulka-bulkaka aritzean. Aingeru Epaltza

Horko lur **azpiko** eraikuntza historikoak promotore pribatuek ez dituztela behar bezala zainduko. Herria

Kanpo alde hartan, errepide **azpiko** tunelaren inguruan, azienda zegoen salgai. Txillardegi

Orduan erreparatu nion **azpiko** testuari. Xabier Mendiguren Elizegi

Hura mugitu zuelarik, haren **azpiko** zulo batetik pikatxoi ttiki bat atera zuen, eta kandela bat zeukan fardeltxo bat. Patxi Zubizarreta

Azpiko ezpaina pixka-pixka bat mugitu zuelarik, iruditu zitzaigun zerbait erran nahi zuela. Daniel Landart

Azaleko nahiz lur **azpiko** meategietan aurki daiteke. Berria - Mundua

Hilerrietako hilkutxen barruan lurperatutako hilotzak ekarri nituen gogora, edozein biziren hezurren ikara eragingo lukeen lur buztintsuaren **azpiko** hezetasuna gozoro berenganatzen. Juan Luis Zabala

Azken etiketaren **azpiko** etiketa. Lourdes Oñederra

Arreba nuen bai, neure arreba arroka zuriaren **azpiko** harlastan, kankailu bat aldamenean, bizkarra xukatzen ziola. Koldo Izagirre

Herri hilaren gainean, ordoki batean, jauregia, luzetasun guzian lehengo balkoi haundia gelditzen zaio, aldiz **azpiko** gela guzietako murruak deseginak dira, dena asun eta sasi. Michel Oronoz

Horra Bego jauna, zuk igorri pikoak, ez erranak, informazio eskasa eta **azpiko** zurrumuak xuxenduak. Herria

Ni **azpiko** ataletatik hasten naiz. Berria - Kultura

Aurrerago, beste baserri batzuk, eta beste asko gorago, halako orban zuriak Karakate **azpiko** hamaika adabaki berderen artean. Iñigo Aranbarri

2 *iz* mendekoa.

Bainan laster boz ainitz altxatu dira salatuz etzutela kanpotiarren **azpiko** izan nahi. Herria

Eliza santu beraren oinetan beti mendeko eta **azpiko**, fede katolikoan irmo. Piarres Aintziart

Palestinarrak **azpikoak** dira, piztiak, kortan gorde beharrekoak. Berria - Mundua

-Bere lana egiten ez duelarik baizik ez da haizu borreroa urkabera eramatea -ihardetsi omen zion bere **azpikoari**. Aingeru Epaltza

Haien **azpiko** egiten gintuen, neurri batean bederen, eguna nola antolatu erabakitzerakoan. Pedro Alberdi

3 ***arantza azpiko muskulu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Tuberkulu nagusia: muskulu desberdinak ezartzen dira: arantza gaineko muskulua, **arantza azpiko muskulua** eta muskulu biribil txikia. ETC-entziklopedia

4 ***azaren azpiko orri*** *(corpusean ez dago; ETCn **8** agerraldi)*

Eta hori, bere horretan, egia esatea besterik ez bada ere, norberaren amari behin baino gehiagotan entzutea gizon izatea gurago zuela benetan da gauza iluna, **azaren azpiko orriak** baino ez direla kodifikatzen duten belarrientzat. ETC-literatura, saiakera

Ez dira **azaren azpiko orria** erakundeek babesturik ele batean baino gehiagotan plazara datozen denetako materialak: liburuxkak, aldizkariak, esku programak... ETC-prentsa

Kolore eta tamaina guztietako aziendaren etorkizuna euri-jasaren ondorengo errioarena baino uhertuagoa den aro honetan hauen pasmo eta zornetaz aritzea neguko barazkien erregetza dagoenerako galdua duen **azaren azpiko orria** irudituko zaizu, baina tira... ETC-prentsa

Hau buruhaustea! Eta ez da **azaren azpiko orria**! ETC-prentsa

5 ***azpiko arropa*** barruko arropa, ikusten diren jantzien azpian janzten dena.

Gure ama goizero joaten zen kartzelara **azpiko arropen** fardela eramatera, baita laranja zurituak eta intxaur kraskatuak ere janaria eramatea zegoen egunetan. Fernando Rey

Azpiko arropak zeuzkan jantzita eta nik, ipurdiko ttua lehortuko zitzaidan beldurrez, galtzontziloak erantzi nizkion kontu handiz. Aitor Arana

Hartu berriro, aldatu goitik behera (beno, **azpiko arropa** oraindik janzteko moduan dauka), eta etzan. Arantxa Iturbe

Une horixe hautatu nuen, **azpiko arroparen** mostradoreen gibeletik ateratzeko. Aingeru Epaltza

Atetik kanpora atereak zituen Honorék nire puska guztiak, edertasun-gaien laginak, **azpiko arropa**, mantal zuria eta galtza gris estuegiak. Joxan Elosegi

Luteziak berak ematen zidan beldurra eta bai Lutezia **azpiko arroparekin** ikusteko nuen gogoak ere. Matías Múgica

6 ***azpiko ekonomia*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Sistema ekonomikoek beste ezaugarri batzuk ere bil ditzakete, hala nola autarkia edo ekonomia itxia, protekzionismoa edo estatuak bertako ekoizleek kanpoko ekonomien eraginez jasandako kalteak ekiditeko politika eta **azpiko ekonomia** edo inongo kontrolik gabeko ekonomia. ETC-entziklopedia

Aktiboen tasaren jaitsiera ere izan du hizpide Euskadiko CCOOk, eta horren ondorioz jendea lan merkatutik ateratzen ari dela eta **azpiko ekonomia** handitzen duela iritzi dio. ETC-prentsa

Bakarrik egiten die kalte, langabezi-estaldura oinarrituta, beren bizimodua aurkitu dutenei (zelako bizimodua daramaten langabeziaren lepotik bizi direnek! Ez dago ezkubiderik!), edo/ta aipaturiko estaldura **azpiko ekonomiaz** osatzen dutenei. ETC-prentsa

7 ***azpiko galtza*** *pl* ik **galtzazpi**.

Ehizako berokia, zorroa, botak, galtzerdiak, ehizako kapa, azpiko **galtza** luzeak, errepikaziozko eskopeta. Koro Navarro

Zera esan nuen, gona gora eta **azpiko galtzak** behera neramatzala: [...]. Karlos Zabala

Soinekoak azpiko **galtzetan** sartuta emakume ile-nahasiak, gizon oin-hutsak mahuka hutsean, galtzazpiez eta elastikoez jantzitako ume mordo bat. Koro Navarro

8 ***azpiko gona*** gonaren edo soinekoaren azpian erabiltzen den azpiko arropa mehea, gerritik beherakoa edo gorputz osokoa.

Zoritxarreko neskaren **azpiko gona** baten zati bat, bi oin luze eta oin bat zabal, erauzia zegoen eta neskaren kokotzaren azpian lotua, buruaren atzealdetik, garrasirik egin ez zezan seguraski. Koro Navarro

Eta Mundakako ihauteriak, azken herri huntako gizonak karriketan gaindi dabiltzalarik emazteen **azpiko gona** zuria soinean, burua ohe-buruko oihal batez estalirik. Herria

Azpiko gonaren soka bat lurrean arrastan zegoen. Irene Aldasoro

Azpiko gona jantzita egoten ziren gure amaren bezero batzuek esaten zuten: beti goibel egoten da mutiko hori. Pello Lizarralde

Ordea, **azpiko gona** haren bueltaren azken puntadak ziren. Jon Maia

Koroa galdu zuen aurrena, longaina galdu zuen gero, soinekoa galdu hurrena, eta **azpiko gona**, eta galtza txikiak... Anjel Lertxundi

9 ***azpiko inflazio***

Azpiko **inflazioa,** energia eta elikagai freskuak kontutan hartzen ez dituena oso prezio aldakorrak baitira, %2,1 hazi da azken urtean. Berria - Ekonomia

Energia eta elikagai freskoak kenduta lortzen den azpiko **inflazioa** %0,9ra jaitsi zen iragan hilean.

Azpiko **inflazioak** berdin jarraitzen du, eta, petrolioa ez bada garestitzen, **«inflazioa** neurrian» igoko dela pentsatzeko aztarnak badirela uste du patronalak. Berria - Ekonomia

Azpiko **inflazioa** %2,9an mantendu zen. Berria - Ekonomia

10 ***azpiko jantzi***

Azpiko jantzi zikinak eta halakoak ere ederki tolestuta zeuden, eta zalantzarik gabe denbora pixka bat beharko zukeen edonork hura egiteko, emakume baten esku trebeek ere bai. Ibon Uribarri

-Yoxio, garbi ezak hori **azpiko jantziaren** mahukarekin -esan zion aitak. Ibon Uribarri

Gure amak ez zekien zer egin gure aitak kartzelan **azpiko jantziak** eta jana izan zitzan, eta, gainera, larrituta zegoen, berriren bat noiz ailegatuko zain. Fernando Rey

Soinekoaren **azpiko jantzia** muselina finezkoa zen; eta hartatik zortzi hatz zabaleko zerrenda bat zegoen kendua, ardura handiaz eta oso modu erregularrean. Koro Navarro

Heldurik amodioaren tenplu honetara, hautatzen dut **azpiko jantzirik** dotoreena. Jon Muñoz

OL ez zen saltoki handi bat, eta bera ez zen **azpiko jantzien** saileko neska saltzaile pinpirin bat. Jon Muñoz

11 ***azpikoz gain*** *adlag* azpikoz gora.

Lehenago ofizial horrek auzi batean jauntxoen alde eta daliten kontra gezurra sakatu eta epailearen erabakia **azpikoz gain** itzulikatua zuen. Gotzon Garate

Horra Jaunak lurra suntsitu eta errautsi, **azpikoz** gain irauli eta bizilagunak sakabanatu. Elizen arteko biblia

Horra Jaunak lurra suntsitu eta errautsi, **azpikoz gain** irauli eta bizilagunak sakabanatu. Elizen arteko biblia

12 ***azpikoz gainera*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Juduen hilerrian hamabi mila hilarri inguru ageri ziren, nahaste-borraste ederrean denak, atzekoz aurrera batzuk, **azpikoz gainera** besteak, lurrazpiko azkazal zorrotzak bailiran. ETC-literatura, saiakera

Badira pintorearen eskumenera ontzitxo batzuk pigmentuz beteak, zurezko kutxatila bat, estiletea, eta tresna bat, hasieran bereizi ez baina orain garbi ikusten dudana: beste ispilu bat, eskukoa bigarren hori, kirtenduna, mahaian pausatua **azpikoz gainera** . ETC-literatura, saiakera

Izarak garbigailuan sartu zituzten eta **azpikoz gainera** jarri zuten koltxoia. ETC-literatura, saiakera

13 ***azpikoz goiti, azpikoz gora*** *adlag* azpian egon ohi dena gainean dagoela; nahas-mahas. ik**hanka 33**; **azpiko 5**.

Hermionek esne-pitxerra mahaira ekarri eta **azpikoz** gora jarri zuen. Iñaki Mendiguren

Ikuskari izugarria azaldu zitzaien begien aurrean, altzariak **azpikoz** gora zeuden, itxura guztia zuen ikaragarrizko borroka izan zela biktimaren eta gaizkilearen artean. Josu Zabaleta

Odolik ez, **azpikoz** gora utzitako altzaririk ez. Oskar Arana

Errai guztiak **azpikoz** goiti ezarriak neuzkan, ingeniari pitzatu batek diseinaturiko atrakzio deabruzkoak irauliak. Aingeru Epaltza

Gauez irten zen arrantzara, eta egunsentian haren txalupa aurkitu zuten, **azpikoz** gora, baina aitona ez zen han. Jon Muñoz

Egoera ez zela larria baieztatzen zuen, galdetutakoan, ez zela komeni alde egitea, alde eginez gero galduko zutela iraultzaren irakasgaia, gizon emakumeen barnekoa **azpikoz** gora iraulirik zintzoa gaizto bihurtuko zela, eta gaiztoa zintzo, eta ikuskizun horrek merezi zituela jasaldiak. Felipe Juaristi

14 ***azpikoz gora irauli***

Itzultzeko irrikaz, grinatsu **irauli** dugu lurra azpikoz gora, lubakitik kanpora egin nahian. Mirentxu Larrañaga

Maistra berriaren etorrerak azpikoz gora **irauli** zuen nire bizitza. Juan Kruz Igerabide

Irauli egin dira balioak azpikoz gora. Joxe Azurmendi

15 ***azpikoz goratu*** azpikoz gora jarri.

Era horretara, dena **azpikoz** goratua gertatu zen. Isabel Arrigain

Ez dela zilegi jainkoen antzinako asmoak gizateriarentzat betidanik fundaturiko mundu honen oinarriak ezein indarrez lokatzea ez hitzez erasotzea ez izadia barrenetik **azpikoz goratzea** . Xabier Amuriza

Schopenhauer bera gozatzaile desengainatua izanik, sinesteak oro, itxaropenak, olertiak, ilusioak **azpikoz goratu** zituen, lehiak birrindu, arimaren uste onak erauzi, maitasuna hil, emakumearen gurtza ideala eraitsi, bihotzaren ilusioak zulatu, inoiz egin den eszeptiko lanik erraldoiena burutu zuen. Josu Zabaleta

16 ***edontzi-azpiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi)*

Atzetik datoz ardoa dastatzeko edalontzi bereziak, tantak jasotzeko eraztunak, **edontzi-azpikoak** , ardoaren tenperatura neurtzeko termometroak... ETC-prentsa

Bohncgang Kooren erakusketa ere berezia izango da: haren obra tabernetan aurkitu ahal izango diren **edontzi azpikoetan** inprimatu da. ETC-prentsa

Botila mahaitxoaren kristal gainean utzi du, **edontzi-azpikoan** jarrita. ETC-literatura, saiakera

Tximinoa geneak zuhaitzen muturretan gordetzen dituen makina bat da; arrain bat geneak uretan gordetzen dituen makina bat da; zizare txiki bat ere badago, geneak garagardo alemaniarraren **edontzi-azpikoetan** gordetzen dituena. ETC-literatura, saiakera

Jakatik boligrafo bat atera, eta azpikoz gora jarri zuen **edontzi azpikoa** . ETC-literatura, saiakera

Neska iritsi berriak -Almudenak- orain lotuan egiten zuen dantza, orain era askean -tarteka ere joaten zen mahaira, non baitzuen bere gintonika, **edontzi-azpiko** baten gainean-, piezen arabera. ETC-literatura, saiakera

Halaxe hartu nuen egin zenuen hurrengoa: mahai gaineko egurrezko kaxatik speeda atera, marmolezko **edontzi-azpiko** baten gainean lerro bi jarri, eta haietako bat sudurretik sartu, plastikozko tutu beltz baten laguntzarekin. ETC-literatura, saiakera

17 ***loki azpiko hobi*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Aurreko muturrean izan ezik, betzuloaren alboko hormaren eta zoruaren bitartean beheko betzulo-arteka tartekatzen da, eta, hortaz, esan daiteke harremanean daudela betzuloa eta **loki azpiko hobia** . ETC-zientzia, zuzenbidea

18 ***lur azpiko urak***

Ecofuel enpresa lanean hasiz gero lurzorua, **lur azpiko urak** eta paisaia ere hondatuko liratekeela adierazi du LABek. Berria - Euskal Herria

19 ***ohe azpiko*** *(orobat **ohazpiko**) izlag*

Ibiltzen naizela!, ate osteko ezezagunaz, errezel atzekoaz, armairu barrukoaz, **ohe azpiko** ezezagunaz naiz beldur. Josu Zabaleta

Eta uhaletatik beso bat atera, ohe azpian haztamuka hasi eta **ohazpiko** beirazko pixontzia hartu eta ikaragarrizko indarrarekin jaurti zuen, pixontzia hegan joan zen logelan zehar eta nire ohe ondoko paretan jo eta txikitu zen Fernando Rey

20 ***Sahara azpiko Afrika***

Sahara Azpiko Afrikako oinarrizko hezkuntzan dauden 860.000 ikasleek galdu dute irakasleren bat HIESarengatik. Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

afrikako sahara azpiko (4); **ate azpiko zirritutik** (4); **atearen azpiko** (3); **azpi azpiko** (3)

azpiko afrikako (3); **azpiko aldea** (7); **azpiko aldean** (19); **azpiko aldetik** (8); **azpiko arropa** (12); **azpiko arropak** (5); **azpiko arropen** (3); **azpiko beste** (4); **azpiko bi** (3); **azpiko europako txapelketa** (5); **azpiko failaren** (3); **azpiko galtzak besterik** (4); **azpiko gazteen** (3); **azpiko gela** (3); **azpiko gona baten** (3); **azpiko haurrentzat** (3); **azpiko hiru** (3); **azpiko inflazioa** (7); **azpiko inflazioak** (4); **azpiko isurbideak ez** (6); **azpiko jantziak** (3); **azpiko kate honetatik** (4); **azpiko kategorietan** (3); **azpiko lan** (3); **azpiko lau** (3); **azpiko lur** (4); **azpiko lurra** (5); **azpiko munduan** (3); **azpiko munduko kopa** (4); **azpiko munduko txapelketan** (3); **azpiko ohean** (3); **azpiko sei** (3); **azpiko tunela** (5); **azpiko ur** (5); **azpiko zirrikitutik** (4)

baina azpiko (3); **baten azpiko** (6); **bi urtez azpiko** (3); **bost urtez azpiko** (3); **da azpiko** (3); **epidermisaren azpiko** (3); **estatuz azpiko** (3); **etxe azpiko** (15); **etxearen azpiko** (3); **gure azpiko** (5); **hanka azpiko** (3); **haren azpiko** (8); **harraska azpiko** (3); **hegalaren azpiko** (3); **hitzen azpiko** (3); **hori azpiko** (3); **horien azpiko** (4); **horren azpiko** (7); **ilargiaren azpiko** (3); **izotz azpiko** (3); **jendez azpiko herrietan** (3); **kartzelara azpiko** (3); **lur azpiko mundura** (4); **mahai azpiko dirua** (3); **nagusiaren azpiko** (3); **neskaren azpiko gona** (3); **oinen azpiko** (4); **sabai azpiko** (3); **sei urtez azpiko** (3); **soka eta azpiko** (6); **teilatu azpiko** (3); **tropikoaz azpiko** (3); **udaletxe azpiko** (4); **ur azpiko** (13); **urte azpiko munduko** (3); **urtegiaren azpiko** (4); **urtegiko azpiko** (3); **urtez azpiko espainiako** (5); **urtez azpiko europako** (5); **urtez azpiko gazte** (3); **urtez azpiko haurrek** (3); **urtez azpiko mailan** (5); **urtez azpiko munduko** (11); **urtez azpiko selekzioan** (4); **urtez azpiko selekzioarekin** (7); **zaharraren azpiko** (3); **zero azpiko tenperatura** (4); **zetazko azpiko** (3); **zoritxarreko neskaren azpiko** (3); **zuen azpiko** (4); **zuriaren azpiko** (3)

urtez azpikoa (7)

azpikoak izan (3); **urtez azpikoak dira** (3)

urtez azpikoan (10)

urte azpikoek (3); **urtez azpikoek** (5)

azpikoen artean (4); **urte azpikoen** (5); **urtez azpikoen mailan** (3); **urtez azpikoen munduko** (5); **urtez azpikoen selekzioarekin** (3)

urtez azpikoentzako (3)

urtez azpikoentzat (8)

urtez azpikoetan (9)

azpikoz goiti (4); **azpikoz gora jarri** (14); **azpikoz gora jartzeko** (3); **azpikoz gora jartzen** (10); **azpikoz goratzea** (3); **dena azpikoz** (4)

---

azpikogona ik **azpiko 4**.

---

azpikontakizun *iz* kontakizun baten barruko kontakizuna.

Koaderno berde ilun bat (France, 210 x 297 mm.) estreinatu dut kontakizun nagusiari erantsitako iruzkin eta **azpikontakizunontzat** . Anjel Lertxundi

Dimitriv bezalako izen exotiko batek, demagun, Danelek behar -eta merezi- ez duen **azpikontakizun** bat eskatuko luke, eta triangeluaren angeluetako batek, Dimitriven trisilabikoak, irudi geometrikoaren oreka desitxuratuko zukeen halako angelu iheskor batez. Anjel Lertxundi

---

azpikontinente **1** *iz* kontinente baten barruan dagoen lur eremu oso zabala.

Bestalde, Txinako **azpikontinente** zabalak ez zeukan benetan zertan beldur izan Mendebaldeko itsas lapurren etorreragatik garai hartan. Iñaki Mendiguren

Gertaeren joeraren britainiar behatzaile askok aurresan zuten Britainiar Inperioa erortzean **azpikontinente** osoaren "balkanizazioa" gertatuko zela. Iñaki Mendiguren

2 ***Indiako azpikontinente***

Indiako azpikontinentea bi estatutan banatu zuten: India eta Pakistan Ekialdekoa, gero Bangladesh bilakatuko zena, eta Mendebaldekoa, egungo Pakistan. Berria - Mundua

Aurangzeb enperadorea K.o. 1707an hil eta mende-erdi baino lehen, behinola **Indiako azpikontinentearen** zatirik handienean subiranotasun eraginkorra zertu zuen inperioa 250 milia luze eta 100 milia zabal zen gorputz-enborrera murriztuta geratu zen. Iñaki Mendiguren

---

azpikontrata **1** *iz* enpresa batek edo erakunde publiko batek beste enpresa bati, zerbitzu edo lan jakin batzuk egin ditzan, egiten dion kontrata. ik **azpikontratazio**.

Gainera, ez da hau guztia, azken beltzean, **azpikontraten** kulturaren ondorio? Iñigo Aranbarri

Kontratak eta **azpikontratak** berriro definitzea, eta azpikontratatzen duen enpresa azken erantzulea izatea edozein arazoren aurrean. Berria - Harian

2 *iz* era horretako hitzarmena duen enpresa.

Azpikontratetako langileak ari dira kutsatzen, minbiziaren estatistiketan ager ez daitezen. Berria - Gaiak

Istripurik gehienak **azpikontraten** artean geratzen dira. Berria - Ekonomia

Azpikontratak etengabe sortu eta desagertzen direnez, gaitza da garaiz harrapatzea. Berria - Ekonomia

FCC **azpikontratako** garbitzaileek greba hasi eta berehala, Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak gutxieneko zerbitzuak ezarri zituen kiroldegietan, zahar etxeetan eta eskola publikoetan. Berria - Euskal Herria

---

azpikontratatu, azpikontrata(tu), azpikontratatzen du *ad* enpresa batek beste enpresa bati kontrata bat egin, zerbitzu edo lan jakin batzuk egin ditzan.

Horren bidez, **azpikontratatzen** dituzten enpresei zergak ordaintzen dituzten agiria eskatu beharko diete Gipuzkoako konpainiek. Berria - Ekonomia

Eta ehungintzaren esparruan, aipaturiko Asiako herrialdeetara eraman edo haietan **azpikontratatu** zuten beren ekoizpenaren parte bat, soldatak haietan oso apalak baitziren. Koro Navarro

Hortaz, **azpikontratatutako** galdekatzaileak erabili behar izan ditu AEBetako agentziak. Berria - Mundua

Zerbitzuak **azpikontratatzeko** joera ere gaitzetsi dute. Berria - Ekonomia

---

azpikontratatze *iz azpikontratatu* aditzari dagokion ekintza.

Azpikontratatzea erantzukizuna alde batera uzteko erabiltzen dute erakundeek. Berria - Ekonomia

---

azpikontratazio *iz* azpikontratatzea. ik **azpikontrata**; **azpikontratu**.

Enpresa askotan malgutasuna eta **azpikontratazioa** dira nagusi. Iñaki Heras

Nazioarteko **azpikontratazioaren** arrakasta, partez, enpresa multinazionalek garai hartan desjabetze-arriskuaren gorakadari eman zioten erantzuna izan zen. Koro Navarro

Lan jarduna handitzea, behin-behinekotasuna, **azpikontratazioa** orokortuta dago, langabetuek jasotzen duten laguntza txikitzea eta antzekoak dira horren adibide. Berria - Euskal Herria

---

azpikontratu *iz* azpikontratatzea. ik **azpikontrata**; **azpikontratazio**.

Kasu askotan, ordea, ezinezkoa izaten da eskubideak eskuratzea: "Gaztelaniazko itzulpenetako eskubideak erosten dituen argitaletxeak Espainiako Estatuko hizkuntza guztietarakoak erosten ditu gehienetan, eta gero berak negoziatu egiten ditu eskubide horiek, **azpikontratu** gisa. Berria - Kultura

Izan ere, finantzatze-aukera berriak eskaini zizkieten nazioarteko neurria zuten enpresei, eta inbertsio-forma berriek ostera (nazioarteko **azpikontratua** eta lizentziak ematea) leku ezin hobea aurkitu zuten esperimenturako garapen-bidean zeuden ekonomia dinamikoenetan. Koro Navarro

Orain bi urte bezala, enpleguarekin zerikusia duten funtsezko edukiak ahaztu dituzte: ezegonkortasuna eta **azpikontratuen** ingurukoak, esaterako. Berria - Ekonomia

---

azpikontsumo *iz* kalitate eskaseko kontsumoa.

Ekonomiaren porrota, industria astunei emandako lehentasun erabatekoak eragina, enplegu kopuru nahiko txikia sortzen baitute, baldin kontuan hartzen badira, batetik, immobilizatzen diren kapitalen zenbatekoa, eta, bestetik, bilakaera demografikoa: hortik langabezia, **azpikontsumoa** eta kate-amaierako efekturik eza. Koro Navarro

---

azpikontzeptu *iz* kontzeptu baten barruko kontzeptua.

Baieztapen hori argudiatzeko, artearen kontzeptu generikoa eta artearen **azpikontzeptuen** arteko bereizketa egiten du, honako estrategia honi jarraituz: alde batetik, argudio bat aurkezten du ondoren artearen **azpikontzepturen** bat (eleberria, adibidez) kontzeptu irekia dela erakusteko; beste aldetik, era orokorragoan, artea bera kontzeptu irekia dela frogatu nahi du. Askoren artean

azpikontziente *iz* gizabanakoak kontzienteki hautematen ez dituen gogo prozesuen multzoa. ik **subkontziente**.

Fionn zaldiaren bizkarrean etzanda geratu zen, baina handik laster bere onera itzuli zen, agian bere **azpikontzienteak** mugimendurik eza nabaritu zuelako. Joanes Urkixo

Azpikontzientean zihartuen lanean, egia da, berak ere ez baitzekien, ziur ezetz, handik denbora batera lurrikararen ikasgaiak edo datuak bidaiaren amaierako beste batzuei lotuz egundoko teoria sortuko zuenik. Edorta Jimenez

---

azpikontzientzia *iz* azpikontzientea. ik **subkontzientzia**.

Baffinek, edo gure **azpikontzientziak**, edo auskalo nork edo zerk jarritako ibilbidetik ihesi abiatu eta ordu batzuetara, helikopteroaren motor hotsa sentitu eta haien atentzioa lortu genuen anorakak astinduz. Bernardo Atxaga

Ezker jaio nintzena, amak eginahalean eskuindu ninduelako edo, auskalo zein armiarma-sare gorde zitzaidan **azpikontzientziaren** zoko itxuren batean, baina titulazio eta onespenen kontrario topatu dut beti nire burua. Pello Zabala

---

azpikotasun *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi) iz* azpikoa izatearen nolakotasuna.

1688ko notario akta batek agerian uzten du Lizaratzuko jauregiari buruz **azpikotasun** azkar bat zutela Errekabeherekoek. ETC-literatura, saiakera

Alemaniarren pentsamenduaren abstrakzioa eta presuntzioa pauso berak eginez ibili dira beti haien errealitatearen aldebakartasunarekin eta **azpikotasunarekin**. ETC-literatura, saiakera

Gai edo arazo horretan errealitatearen osotasuna eta batasuna ematen denaren balizko hologramatikoa oinarri harturik, beraren banaketa eta batasun-poloak aurkitu objektibotasunaren eta **azpikotasunaren** dialektika ulertzeko, eta dialektika hori erabiliz bere alde desberdinak ikuspegi emergente batean eraiki. ETC-zientzia, zuzenbidea

Onargarritasun-iritzien testetan oinarritutako ikerketa batean, Schachterrek (1989) ingelesa ikasten ari ziren hiru ikasle talderekin (indonesierako, txinerako eta koreerako jaiotzetiko hiztunak) **azpikotasun** deritzon gramatikako murriztapen bati buruzko probak egin zituen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Diglosia aipatu eta euskal gizartean hizkuntza-gatazka bat zegoela esaten zenean, hain zuzen, **azpikotasun**-egoera hori azpimarratu nahi zen. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azpikotu, azpiko(tu), azpikotzen du *ad* azpiko egin, menderatu.

Borreroak beretzat hartu zituen haren jakatxoa, haren mahuka josturatik askatuak, eta oihal finezko txano eder bat, marta-larruz **azpikotua**, zeina ostatu-etxe on batean lapurtua baitzuen. Juan Garzia

Ba omen zeuden, baina bi besterik ez: ondo ixten ez zuen zuri bat, 350 pezeta balio zuena, eta beste bat beltza, barrutik eztainuzko xaflaz **azpikotua**, zeinarengatik 450 pezeta eskatzen zuten. Ramon Saizarbitoria

---

azpikultura **1** *iz* kultura talde baten barnean jarrera bereziak dituen azpitaldea.

Jacqueline Urla antropologo estatubatuarrarekin batera, **azpikulturak** gizartean duen eraginaz mintzatu ziren herenegun Bilbon. Berria - Kultura

Egia da "zakila gogor eta aldarte onean jaiki nintzen..." eta antzeko pasarteak direla arrakastatsuenak, zakar erasan baitio kalimotxoaren eta kalitxikiaren **azpikulturak** geure gazteen sentsibilitateari. Markos Zapiain

Izaera subertsibo bizia du politena, arau heterosexuala auzitan jartzen duten **azpikulturei** adi. Berria - Gaiak

2 *azpikultura gotiko* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Viktoriar aroko jantziak erabiltzen dituzte, **azpikultura gotiko**, punk, meido eta abarrezko ikutiak dituztenak. ETC-entziklopedia

3 *gotiko azpikultura* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Gotiko azpikultura mundu osoan hedatutako azpikultura eta hiri tribu bat da. Azpikultura honetako kide edo jarraitzaileei gotikoak deritzaie. ETC-entziklopedia

---

azpil **1** *iz* aska.

Nire aburuz, euriari prestatu dizkiogun **azpil** eta konketa handitzar berezi horietan datza kontua. Pello Zabala

Trokarra atera eta kanula han uztean, ura, berdekara, serositatez betea, **azpil** batetik barrinoi batera bezala zerion. Josu Zabaleta

Eta segidan **azpiletik** jauzi egin zuten xoriek, lumaz estali ziren, airatu eta kantuz hasi. Piarres Aintziart

Presta dezagun **azpil** bat urez betea, barruan ispilutxo bat jartzen diogula: udapartea dugu, eguzkiak bere gaina hartu du. Joan Mari Lekuona

2 *iz* plater gisako ontzi handia. ik **erretilu**.

-Ongi erran beharko! -erantzun zuen txangurroa **azpiletik** hartu, hankarik potoloena erauzi eta, kraskagailua erabiliz, oskol gogor hura hausten zuelarik. Josetxo Azkona

Bat-batean deskubritu dut, nire plateraren ondoan, eztainuzko **azpiltxo** bat dagoela eta bertan, saltsa ilun batean igerian, oilasko izter bat. Monika Etxebarria

Gure inguruan, koilarari eta **azpilari** narda keinuz heltzen zieten zenbaiti esaten zien berak esku hartu zuela oraingoaren aurreko Mundu Gerran, ofizial gisa. Urtzi Urrutikoetxea

Etxezainak bi bisitaren berri eman zion, baita kanpoan egon bitartean jasotako zenbait deiren berri ere, eta **azpil** batean pilatutako posta ekarri zion. Eduardo Matauko

-On degigula! -esanaz sartu zuen Justok sardexka **azpilean**. Joxemari Urteaga

Kikarak, botila eta kopa bat ekarri zituen **azpil** batean. Migel Angel Mintegi

---

azpilan *iz* azpijokoa, inoren aurkako jardun isilekoa.

Nire aurka marmarrean eta **azpilanean** ari dira etengabe etsaiak. Elizen arteko biblia

Joan den urtean, nor ari ote zitzaion sutara bulkatzeko **azpilanean**? Aingeru Epaltza

Hark ere alaba ikusi nahi izan zuen, eta haren harridurak goia jo zuen Budurrek **azpilanetan** ibili izana leporatu zionean. Patxi Zubizarreta

Ez zekien eta ez zuen sekula jakingo Nikolairen **azpilana** zein zen. Felipe Juaristi

Egin ere, sotanapean egin izandu baita **azpilan** eta hilketa ilun asko. Patziku Perurena

Edo jaunak uste ote zuen amarru edo **azpilan** edo trikimailu bereziak erabili behar zirela ogiaren eta lukainkaren jabe egiteko. Anton Garikano

-Kaskoa lanean ari ez bazaio, orduan atzealdea ari zaio **azpilanean**. Itziar Otegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azpilana egin zuten** (3); **azpilana egiten** (3); **kontra azpilana** (3)
> **azpilanean ari** (5); **azpilanean aritu** (3)

---

azpildu, azpil(du), azpiltzen **1** du *ad* azpildura egin edo ezarri.

Eta berriz tzigan kutsuko aire baten **azpiltzeari** ekin zioten. Itxaro Borda

Ni Onuzki nauzu, **azpildu** gabeko bihotzaren jabea. Karlos Linazasoro

2 (partizipio burutua izenondo gisa)

Zernahi gauza nahasten ziren pilda bulta baten azpitik ikusi nuen, andaluziarren mahukak bezala beltz eta kobrez **azpildua**, distiratsu, fin, navaja baten giderra. Koldo Izagirre

Zeren eta urte batean amak tabinetezko txaleko purpura bat egin baitzion berari urtebetetzeko oparitarako, azeri-buru txikiak gainean, saten marroiez **azpilduak** ertzak, eta masusta formako botoi biribilez. Irene Aldasoro

---

azpildura **1** *iz* jantzi edo ehun baten ertza azkentzen duen tolesa; jantziaren ertzean ezartzen den ehun zerrenda. ik **toles**.

Jauregian paretak zeta frantses tindu finekoz estaliak zeuden: zeru-koloreak, berde argiak, arrosak, **azpildura** urrekaraz sendotuak, eta guztiak Pariseko ehundegietatik ekarriak. Xabier Olarra

Arrazionaltasun cartesiarraren mugak hankazgoratzea bilatzen du egileak, eta horretarako, egileak lagun du liburuan omentzen duen Julio Cortazar, eta izen horren baitan biltzen den literatura mota, jolasa ardatz hartuta errealitatearen **azpildura** berriak, ifrentzu ezezagunak bilatu nahi dituena. Berria - Kultura

Masailak kolorgetu egin zitzaizkion, kolore oro bere sudur mela-mela egindakora aldatu izan balitzaio bezala, eta **azpildura** arrosak ageri zituen betile zurbilen inguruan. Mirentxu Larrañaga

Oraindik ere jakan gordeta dauka zapi zuriaren **azpildura** perfektoa, aitaren patrikatik lapurtua, uso-hego jauzkaria irudi. Javi Cillero

Oraindik ere jakan gordeta dauka zapi zuriaren **azpildura** perfektoa, aitaren patrikatik lapurtua, uso-hego jauzkaria irudi. Javi Cillero

2 *iz* bi aurpegi edo jarrera erabiltzen dituen, itxurak egiten dituen pertsonaren jokaera. ik **toles**.

Azpildura izanez gero, zentzurik ez du ia honek guztiak. Koro Navarro

Ez nekien zer zen lopette bat, baina hitzak **azpildura** gaiztoren bat behar zuen, han hurbil ziren langileek barre egin baitzuten galderarekin. Anjel Lertxundi

---

azpiliteratura *iz* kalitate eskaseko literatura.

Guareschi, erdeinuz, "herri literatura" edo "**azpiliteratura**" deitu izan den horren barruan sailkatutako idazlea da; hori izan da oraintsu arte, behintzat; izan ere, Italian oraintxe hasiak dira literatur kritikari eta aztertzaile batzuk haren izena eta lana "berreskuratzen" eta haren ekarpenari garrantzia ematen. Koldo Biguri

Ez literaturaren historia, baizik eta alboko zurrumurruarena, eguneroko idazketarena, hain arin iraungitzen dena, ezen obraren estatusa ez duen sekula bereganatzen edo berehala galtzen duen; **azpiliteraturen** azterketa, almanakaena, aldizkari eta egunkariena, arrakasta iheskorrena, egile aitorrezinena. Xabier Arregi

---

azpimaila *iz* maila baten barruko maila.

Baina osagai-egitura ezin da **azpimailatan** zatitu: osagai-egitura mailan, esaldia kate talde bezala itxuratzen da, eta ezin da gorago edo beheragoko mailatan ordenatu. Itziar Laka

---

azpimarka *iz* azpimarra.

Eroskik jakinarazi du ikur berriak konpainiaren izenean oinarrituko direla "erabat", baina saltokien berezko ezaugarrien **azpimarka** batekin aberastuko dituztela logoak. Berria - Ekonomia

---

azpimarkatu, azpimarka(tu), azpimarkatzen *(ETCn **26** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **azpimarratu** agertzen da)* **1** du *ad* idatzitako zerbaiten azpian, dioena ohartarazteko edo nabarmentzeko, lerro zuzen bat egin.

Tekleatzean, gutxienez hitza **azpimarkatu** egiten zenuela iruditu zitzaizun eta irribarre maltzurtxo bat egin zenuen barrurantz, zeure baitan. Lourdes Oñederra

Mahai gaineko orri zaharrean nire izena **azpimarkatu** zuen hiru aldiz. Aingeru Epaltza

Goi mailako teknika indartsua adierazi zigun txeloaren gainean: arkuaren eraso-kolpe indartsua dauka, ia leherkorra, doinuaren hasierako notak ia **azpimarkatuz**, vibrato zabala, goi tesitura zailean erraz zebilena, soinua garbia, afinazio eta fraseatze txukuna zati lirikoetan; arpegio, trino, mordente edo hiru hariko akordetan artista. Berria - Kultura

2 du *ad* ohartarazi, nabarmendu.

Gizonak begiek gatibatu ziotena **azpimarkatu** zuen, kartierreko bizpahiru gauza lekuko suertatu zirela erantsiz. Itxaro Borda

Besoak jasotzen hasi zara zure etsipena **azpimarkatuz**. Lourdes Oñederra

Aitorpen horietatik ezein ez da faltsua; hala **azpimarkatu** izanak bilakatzen ditu adierazgarri. Juan Garzia

---

azpimarra *iz* idatzi den zerbaiten azpian, hura nabarmentzeko egiten den marra.

Nork kenduko dit neure diruz ordaindu dudan eta neure izena, salneurria, erosketaren eguna eta irakurtzerakoan egindako **azpimarrak** dituen liburu bat? Anjel Lertxundi

Idazle baten liburutegiak (apaletan haustutako liburuek; liburuetako **azpimarrek** eta in margine egindako oharrek; zein sasoitan zein liburu-klase irakurtzen zituen jakiteak) informazio ugari eman dezake idazle horren obraz. Anjel Lertxundi

Emakumea falta **azpimarra** lilapean. Iñigo Aranbarri

Hogei bat orrialde ziren, hainbat ataletan banatuak, bakoitza bere sail eta azpisailekin, denak letra beltxez, kurtsibaz, **azpimarrez**, tarte xuriez eta ordenagailuak gisako lanei ekartzen dizkien gainerako miragarriez hornituak. Aingeru Epaltza

"Beste mundu batean zaude" (**azpimarra** nerea, jakina). Iñaki Segurola

Azpimarrak gainbegiratzen ibili zen, besterik gabe, eta horrek bere oharretan zerbait zirriborratzeko gogoa piztu zitzaion. Iñaki Iñurrieta

Bidali ez genituen gutun guztiak eta gure buruari beteko ez genituela jakin arren izunak zirenik aitortu gabe egindako promesa guztiak daude **azpimarra** horien baitan. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

liburuetako azpimarrek (3)

---

azpimarragarri *izond* azpimarratzea merezi duena, nabarmentzea merezi duena.

Azpimarragarria iruditzen zaigu, zentzu horretan, Sisifo izeneko draman, Kritiasek egiten duen lehen itunaren -lehen legearen- oinarri mitiko-teologikoaren salaketa. Askoren artean

Zuzentzaileak bikoizteko dohain **azpimarragarria** du, deleatur bat marraztu edo koma eztabaidaezina sartzen du, eta, aldi berean, neologismoa onar dezagun, heteronomizatu egiten da. Jon Alonso

Erran zidan Kanbokoak lan ona egina nuela, **azpimarragarria** ere, baina bakarrik ez nuela egoeratik ateratzeko menturarik. Piarres Aintziart

-Egindako teorizazio lana **azpimarragarria** da. Pello Zabala

Gertaera **azpimarragarririk** ez dut bizi izan, baina oso presente daukat haurtzaroan zer nolako sentimendu bortitzak egoten diren, eta zer nolako ezintasuna sentitzen den. Ana Urkiza

---

azpimarratu, azpimarra(tu), azpimarratzen **1** du *ad* idatzitako zerbaiten azpian, dioena ohartarazteko edo nabarmentzeko, lerro zuzen bat egin.

Hartu lapitza eta **azpimarra** hitzak aditzak, konposatuak nahiz trinkoak. Jesus Mari Mendizabal

Izen batzuk lapitzez **azpimarratu** ditu. Pello Lizarralde

"Ezer ez" idazten hasi nintzen nire agendan gauero, letra larriz eta **azpimarraturik**. Joseba Urteaga

Anjak igorritako faxean, Hans Lauerrek epaiketa egunean esandakoa zetorren komatxo artean **azpimarratuta**. Hasier Etxeberria

Hitz bat **azpimarratzea**, edo are lumaz zein arkatzez zeinu bat egite hutsa, arau-hauste guztiz larria zen. Juan Garzia

2 du *ad* ohartarazi, nabarmendu.

Azpimarra dezagun, berriro, erretinako "irudiaren" izaera argizko informazioaren trataerako aldi bat baizik ez dela eta guk ez dugula inoiz horrelakorik ikusten. Josu Zabaleta

Erakundea zaharberritzeko beharra **azpimarratu** izan da. Iñaki Heras

Eta halere, halere, hor ez dira alde guziak ene iduriko txarrak, badira alde onak, eta alde on horietan, nik **azpimarra** nezakeena da, nolazbait beharbada jendeen izpirituak aldatuko direla. Menane Oxandabaratz

Batzuek haren zurruntasuna **azpimarratzen** dute, eta lagunarterako zuen adur doi eta eskasa. Joxean Agirre

Seriotasuna **azpimarratu** nahi bide zuen. Alberto Barandiaren

Edozein kasutan, **azpimarratu** beharra dago hitanoaren presentzia nokako elkarrizketek osatzen dutela gehien-gehienean. Xabier Paya

Egunkarietan asteartean agertutako bi gauza **azpimarratu** nahi nizkizun. Hasier Etxeberria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azpimarra daiteke** (10); **azpimarra dezagun ere** (4)

---

azpimaxilar *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* **1** *izond* masailezurraren azpikoa.

Adenitis (gongoilen hantura) **azpimaxilarraren** ondorio da, panikulitisarekin (baraileko larruazpiko ehunaren hantura), infekziosoa, orokorrean, difteria eta tuberkulosian deskribatua, edozein bakteriok eragin dezakeen arren. ETC-entziklopedia

2 ***guruin azpimaxilar*** *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Ttu guruin handiak, hiru guruin bikoitiz ordezkatuak daude: mihipeko guruinak, aho barneko ehun konektiboan aurkitzen direnak, parotida guruinak eta guruin submaxilar edo **guruin azpimaxilarrak**, ahotik kanpo aurkitzen direnak. ETC-entziklopedia

---

azpimenu *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)* *iz* menu baten azpiko menua.

Bada, Kontua aukerari sakatzen bazaio, **azpimenu** bat agertuko da, eta hor Pribatutasun ezarpenakaukeran klik egin behar da. ETC-prentsa

Atalen indizeak ere egokitu egin dituzte, eta **azpimenuak** jarri dituzte errazago nabigatzeko. ETC-prentsa

Ez du ia konfiguratuta egon behar, aukera-menuan preferentzia-**azpimenu** asko baitaude, zeinetan bufferra konfiguratu ahal den. ETC-zientzia, zuzenbidea

Menu honek beste **azpimenu** batzuetara eramango gaitu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bere helburua aplikazioaren usabilitatea edo erabiltzeko erreztasuna handitzea funtzio eta tresna nagusiak agerian ipinita menu eta **azpimenu** hierarkikoen arteko nabigazioa ekidinez. ETC-entziklopedia

Hemen menu honetako sarrera bakoitzeko beste **azpimenu** bat dago, non banaketa bakoitzeko bertsio desberdinak ager daitezken, bezeroari aukeratzeko aukera emanez. ETC-entziklopedia

---

azpimota *iz* motak banatzen diren multzo berezietako bakoitza.

Birus **azpimota** bat baino gehiagoren geneak nahastu eta aldagai berriak sortzeko erraztasun handia dutela txerriek dio OMEk, eta, ondorioz, birusak gizakietara salto egiteko arriskua handiagoa dela orain. Berria - Gaiak

---

azpimultzo *iz* multzo bateko zenbait elementuz osatutako multzoa.

Lehen aipatutako ordenatzeko asmoa duten **azpimultzoek** ez dute gehiegi laguntzen eta ibilbidea zehazten baino gehiago erretorika antzura mugatzen da. Berria - Kultura

Kontzeptuok prozedurak bost multzotan sailkatzeko aukera eman digute, zein bere **azpimultzoekin**, baina ez ditugu, haatik, konpartimentu hermetiko gisa ulertu behar. Iñaki Arranz

Nire ustez, ez Europako Batasunak, ez Europako **azpimultzo** batek ere, ez du izango diru bakarra ez 1999ko urtarrilaren 1ean, ez 2002ko urtarrilaren 1ean, ez 2003ko urtarrilaren 1ean, ez beste inoiz ere. Pello Salaburu

Hala ere, materialtasunak askoz ere paper garrantzitsuagoa jokatzen du enuntziatuan: bera ez da bakarrik aldaketa-hastapena, antzemateko irizpideen aldaketa edo hizkuntza **azpimultzoen** zehaztapena. Xabier Arregi

---

azpimundu *iz* bazterkerian bizi diren pertsonen multzo edo jendartea.

Zaldizko klaseak -merkatarienak, alegia- aurrera egin zuen esklaboen **azpimunduaren** eta senadore-aristokraziaren bizkar. Iñaki Mendiguren

Gauerdia aspalditxo iragana, asteburuko usadioari jarraikiz, neonezko argi gorriek mugaturiko **azpimundura** jotzeko ordua zela deliberatu zuen Iñigok. Migel Angel Mintegi

Ez zen ongi, ez, baina gu fierki ginabiltzan, patuak **azpimunduan** bizitzeko hauta hain jeneroski eskaini izanaz. Jose Angel Irigaray

"Cuernos de espuma" filma ikusi dutenek imajina dezakete zenbait drag-queen giroren **azpimunduan** dagoena. Harkaitz Cano

---

azpinano *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi, soilik **izar azpinano** hitz elkarketan erabiltzen da)* **1** *izond* izar mota.

2 *izar azpinano* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Izar azpinano bat Yerkesen espektru sailkapenean VI klaseko argitasuna duena da. Batzuetan sd aurrizkiarekin adierazten da. ETC-entziklopedia

Gliese 317 metaltasun oso baxuko **izar azpinano** bat izan liteke. ETC-entziklopedia

---

azpiofizial *iz* ofizialordea.

Nazioaren egoerarekin kezkaturik zeuden, ejerzitoko beste ofizial eta **azpiofizial** asko bezala. Pako Aristi

Aguila Patruilako akrobata xaloek urtean bederatzi hilabete ematen dituzte Aire Armadako ofizialak eta **azpiofizialak** eraso ariketetan trebatzen. Berria - Euskal Herria

Begiradan nabari dute denek ere, **azpiofizialek** nahiz ofizialek, zenbateraino bat egiten duten nire oinazearekin.A Mirentxu Larrañaga

---

azpiorbital *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)* **1** *izond* Lurraren orbitaz azpikoa.

Laikaren misioa egin zen garaian espazio-hegaldiek izaki bizidunengan eragin zitzaketen ondorioei buruz ezer gutxi zekitenez, eta teknologia **azpiorbitala** oraindik garatu gabe zegoenez, ez zegoen Laika bizirik irteteko itxaropenik. ETC-entziklopedia

El Arenosilloko jaurtigunetik, INTA-300 eta INTA-255 bezalako suziri **azpiorbitalekin** egin du lan. ETC-entziklopedia

2 *hegaldi azpiorbital* *(corpusean ez dago; ETCn **12** agerraldi)*

Hegaldi azpiorbitala 100km-ko edo gehiagoko altitudera heltzen den hegaldia da baldin eta Lurra osorik inguratzen ez badu. ETC-entziklopedia

---

azpiordena *(corpusean ez dago; ETCn **357** agerraldi)* *iz* biologian, ordena baten barruko ordena.

Ordena horretan **azpiordena** edo azpimundu partikularrak eratzen ditu, errealitate edo osotasun partzialak: morala, politikoa, tekniko zientifikoa, mitikoa. ETC-literatura, saiakera

Galdera ahaztuta nuen garaian, kasualitatez iritsi zitzaidan zeri esaten zaion larrepetit: larre handitan dabilen Orthoptera ordenako Caelifera **azpiordenaren** intsektuari. ETC-prentsa

Cimicidae Homeotermia odol beroko animalien odolaz elikatzen diren intsektu parasitoen familia (biologia) familia da, Heteroptera **azpiordenaren** barnean dagoena. ETC-entziklopedia

Dactylopteroidei **azpiordena** taxon monotipikoaren familia bakarra da. ETC-entziklopedia

Aditu batzuen arabera, bi **azpiordenatan** bereizi ziren. ETC-entziklopedia

Gobioidei **azpiordenaren** barneko harreman filogenetikoak ikertzeko datu molekularrak beharrezkoak izan ziren. ETC-entziklopedia

Familia honetako generoen artean "Indri" dago, bere **azpiordenako** animaliarik handienak. ETC-entziklopedia

Kabuxa zenbait arrain perciformes perziformeen izen arrunta da, Blennioidei **azpiordena** osatzen dutenak. ETC-entziklopedia

Azpiordena hau da hiru taldeen artean ezaugarri apomorfiko gehien dituena eta, beraz, ebolutiboki berriena. ETC-entziklopedia

Azpiordena osatzen duten zazpi familietatik bost iraungituta daude: Phascolarctidae familian koala baino ez da bizi eta Vombatidae familian hiru wombat espezie diraute. ETC-entziklopedia

Wadi Al-Hitan Egiptoko mendebaldeko basamortuan dagoen harana da, baleen lehenengo **azpiordenaren** ("Archaeoceti") aztarna fosilak dituena. ETC-entziklopedia

Zizareak Lumbricina **azpiordena** osatzen duten espezieak dira, anelidoen Haplotaxida ordenan. ETC-entziklopedia

---

azpipolar *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)* **1** *izond* eremu polarra baino epelagoa dena.

Klima ozeaniko hotza edo **azpipolarra**. Negu hotzak eta uda labur eta freskoak dira. ETC-entziklopedia

2 *klima azpipolar* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Klima azpiartiko, klima boreal edo **klima azpipolar** 50º eta 70º latitudeen artean dagoen klima da, klima kontinentalaren azpimultzo bat osatzen dena. ETC-entziklopedia

---

azpiproduktu *iz* fabrikazio-prozesu batean, ekoitzi nahi den produktuaz kanpo lortzen den gaia.

Baina, militar establezimenduen nahigabeko **azpiproduktu** bezala sortzeaz gain, kolonia zibilak berez helburu gisa ere ezarri ziren. Iñaki Mendiguren

Zenbait eremu tradizionaletan liberalizazioaren eta desarautzearen aldeko joerek murrizten dute, egia da, ahalmen hori, joera horiek berak ere globalizazioaren **azpiproduktuak** baitira. Koro Navarro

Lurrari dagokionez, **azpiproduktu** bat bide da haren osaera: izarretan energia eratzearen eta gure galaxiaren baitan izarrak oldeka sortze eta galtzearen albo-emaitza, hain zuzen. Juan Garzia

Erregai-piletan, erregaiak (hidrogenoak, esate barako) oxigenoarekin erreakzionatu eta elektrizitatea sortzen du zuzenean: **azpiproduktu** bat da beroa, ez energia ekoizteko prozesuaren erdiko fase ezinbestekoa, motor gehienetan bezala. Irene Aldasoro

---

azpiprograma *iz* programa baten barruko programa.

Sinatzailea kexu zen Neskalaguna 7.0 programa Emazte 1.0 delakoagatik aldatu berria zuelako, eta huts egiten ziolako, askotan: ustekabean birus baten ezaugarri guztiak omen dituen Amaginarreba 3.1 **azpiprograma** kargatzen zitzaiola, edo Emazte 1.0 funtzionatzean oso mantso doalako Koadrila 4.2 delakoa. Iban Zaldua

---

azpiprozesu *(corpusean ez dago; ETCn **53** agerraldi)* *iz* prozesu baten barruko prozesua.

Thomas Nagel filosofoak argudiatzen du bost direla prozesu etikoan txirikordatzen diren **azpiprozesu**, helburu eta premiak. ETC-literatura, saiakera

Hala, Bagarak kudeatu eta gidatutako **azpiprozesu** bat diseinatu ostean, hura praktikan jartzeko unea iritsi da. ETC-prentsa

Honetan, ezagutza izango litzateke norbanako bakoitzaren kanpoan dauden errealitateen barneratze-prozesua, zenbait **azpiprozesu** ezberdinen bitartez: aprendizaia ere bai, baina baita jarrerak, intentzioak eta horrelako **azpiprozesuen** bitartez ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Irwin-i jarraituz, irakurketa-prozesuak berarekin batera dakartza beste hainbat **azpiprozesu** ere. ETC-zientzia, zuzenbidea

Interakzio-prozesuan, bi **azpiprozesu** bereiz daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

Helburu horiek lortzeko, hiru **azpiprozesu** desberdin baina osagarri, erabiltzen dira: garapen-prozesua, proiektuaren kudeaketaren prozesua eta konfigurazio-kontrolaren prozesua. ETC-zientzia, zuzenbidea

Gainera, **azpiprozesu** horiek guztiak oso azkar gertatzen dira: batez beste, 600 milisegundo inguru baino ez dira behar irudiaren izena esaten hasteko; beraz, **azpiprozesu** guztiek denbora-tarte horren barruan gertatu behar dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hasieran prozesu global konplexua zehazten da, **azpiprozesu** sinpleagotan banatu eta **azpiprozesu** bakoitza bere aldetik ebazten saiatuko da gero. ETC-entziklopedia

Aldi berean, sare sozialak subjektuaren **azpiprozesu** psikosozialetan eragingo du, beraz, subjektuarengan sarearen araberako identitate jakina, jarrera jakinak eta orientazio motibatzaile jakina garatuko dira. ETC-entziklopedia

Neurologo batzuen ustean, jakintsuek eta savant-ek gogamen **azpiprozesu** berberak dituzte, garunaren guneren bati dagozkienak. ETC-entziklopedia

---

azpirakor 1 *izond* azpiratzen duena.

Karaktere "**azpirakorra**" zen hura, beraz, sexuarekin lotua. Juan Garzia

2 *alelo azpirakor* *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Alelo azpirakorra letra xehez (a, adibidez) idatzi ohi da, eta alelo gainartzailea, aldiz, letra larriz (A, esaterako). ETC-entziklopedia

Genetikan, atzeragurutzaketa organismo bat homozigotoa ala heterozigotoa den jakiteko erabiltzen den froga bat da. Horretarako, aztertu nahi den organismoa (genotipo ezezaguna duena) organismo homozigoto **alelo azpirakor** azpirakor batekin gurutzatzen da. ETC-entziklopedia

Akats genetiko hori herentziaz jasotzen da eta X kromosomari lotutako **alelo azpirakor** baten bidez transmititzen da. ETC-entziklopedia

Aleloak gainartzaileak ala **alelo azpirakorrak** izan daitezke. Bi horietako zein den jakiteko, heterozigotoari so egin behar zaio: alelo gainartzailea da heterozigotoaren fenotipoan agertzen dena. ETC-entziklopedia

---

azpiratu, azpira(tu), azpiratzen menderatu, mendean ezarri.

Tomsk egun batzuk lehenago **azpiratu** zuen Feofar Khanek eta handik joko zuten inbaditzaileek Irkutsk aldera, erdi aldeko Siberia mendean hartu ondoren. Karlos Zabala

Munduan zenbat langile ez ote dagoen **azpiraturik**. Patxi Zubizarreta

Gorrotoa XI. gizaldian hasi zen, musulmanak, Indian sartu, hinduak **azpiratu** eta hauen tenpluak desegiten hasi zirenetik. Gotzon Garate

Horrela ibili ziren denboraldi batez, jentilak ezin zubia **azpiratu**, baina lamiek ere ezin bukatu. Pako Aristi

Berriro **azpiratu** zituen aitaren itzal eta larderiak, agindua betearaziz, goiz eder honetan etorraraziz, zer eta zorro hauek garraiatu nahi zituelako farora. Anton Garikano

Garaitu du, **azpiratu** nauela uste du. Koldo Izagirre

Haren ulua nekez **azpiratzen** ahal du kamioien azantzak. Xabier Montoia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azpiratu zuen** (3)
> **berriro azpiratzen** (3)

---

azpiratzaile *izond/iz* menderatzailea.

Berriro ere, gene **azpiratzaile** bat dugu hor, baina, kasu honetan, begiaren garapenaren kargu dagoena, hierarkia genetikoaren mailaren batean. Juan Garzia

Egiaz, zenbat langile azpiratu dagoen eta, beraz, zenbat **azpiratzaile**. Patxi Zubizarreta

Negoziazioak pikutara joan dira bilerara borondate onarekin joan diren bakarrak gu izan baikara; aldiz, aseguru etxeetako ordezkariak jarrera **azpiratzaile** batekin etorri dira. Berria - Ekonomia

---

azpiratze 1 *iz* menderatzea, mendean ezartzea.

Etsaiak ez zekarren berehalako arriskurik, baina hura **azpiratzeak** onura ekonomiko ugari. Berria - Mundua

Nik uste gizakiaren arazorik larriena hori dela: adimenaren harrokeriak gogoa **azpiratzea**. Jenaro Garate

Orduko gertakarien eragina aztertu zuen, ondoko mendean, Pierra Haristoy aihertar apezak eta, behialako Iraultza zer izan zen egiazki adieraz diezagukete haren hitz hauek: Iraultza da, gainean zena **azpiratzea** eta, azpian zena gaineratzea. Piarres Xarriton

2 *azpiratze eredu* *(corpusean ez dago; ETCn **21** agerraldi)*

Hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntzan eredu batzuei menderatze edo **azpiratze eredu** esaten zaie. ETC-entziklopedia

Beste murgiltze eredu bati **azpiratze eredua** deitu izan zaio. Menderatze eredu bat erabili izan dute historian zehar hainbat eta hainbat eskola sistemak. ETC-entziklopedia

Esaterako, aurreko atalean aipatu dugun submertsio- edo **azpiratze-eredueta**n haurrak bere komunitateko hizkuntza alde batera utzi eta hizkuntza nagusia ikastea bultzatzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azpiroztar *izlag/iz* Azpirozkoa, Azpirotzi dagokiona; Azpirozko biztanlea.

Azpiroztarrak, esate bateko, "karakolak" ditugu izengoitiz. Patziku Perurena

---

azpirrutina *(corpusean ez dago; ETCn **133** agerraldi)* *iz* informatikan, errutina baten barruko errutina; errutina.

Erabiltzen den gailua gorabehera, lan-estazio grafikoak kudeatzeko aukera eta datuak modu interaktiboan sartzeko aukera ematen duten azpiprogramen bildumak dira **azpirrutina** grafikoak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Konputagailu batzuetan prozedura- edo **azpirrutina**-dei bat gertatzean automatikoki gordetzen dira erabiltzaileak ikus ditzakeen erregistro guztiak, eta gero berriz ere berreskuratu. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hain zuzen, 4. ilararen garapenari jarraitzen zaiolarik, iletxoak atzeraka apuntatzen hasten dira, eta geroago ematen dute buelta, ziurrenik **azpirrutina** ezustekoren bat dela medio. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azpirrutina horiek era askotan konbina daitezke hainbat hots egiteko, Lego jolas bateko piezen antzera, gaztelua edo ontzia eraiki dezakete, elkartu diren moduaren arabera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Lengoaiaren arabera azpiprogramei izen desberdinak ematen zaizkie: prozedura, funtzioa, errutina, **azpirrutina**, etabar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Matematika eta zientzia ikasten aritu zen, eta programazioan hain ezagunak diren begizta edo **azpirrutina** bezalako kontzeptuak garatu zituen. ETC-entziklopedia

Azpirrutina horiek prozesuan dagoen programa bati dagozkio. ETC-entziklopedia

---

azpisail *iz* sail bat banatzen den zatietako bakoitza.

Hurrengo **azpisailari** ekiterakoan, Ruche jaunari egoki iruditu zitzaion zehaztea matematikariek mekanika esaten diotena jakintza teoriko bat dela, eta ez eskulana. Jon Muñoz

Azken urteotan **azpisail** mordoa zabaldu dute ingurumari horietan etxe berriak eraikitzearren. Javi Cillero

UPNren helburu sozialak bilduko ditu eta bederatzi **azpisailetan** banatuko da. Berria - Euskal Herria

Hogei bat orrialde ziren, hainbat ataletan banatuak, bakoitza bere sail eta **azpisailekin**, denak letra beltxez, kurtsibaz, azpimarrez, tarte xuriez eta ordenagailuak gisako lanei ekartzen dizkien gainerako miragarriez hornituak. Aingeru Epaltza

azpisare 1 *iz* sare baten barruko sarea.

Epe erdira eta luzera, EAEko hezkuntza-sareak (eredu, maila eta **azpisare** guztietan) Europan eredu izan behar duela uste du EAJk, giza baliabideen garapenean eta heziketaren arloan. Berria - Euskal Herria

2 ***azpisare maskara*** *(corpusean ez dago; ETCn **22** agerraldi)*

Azpisare-maskara sareko makina bat zein IP saretan sartzen den ebazteko erabiltzen da. ETC-entziklopedia

Helbide sortak adierazteko **azpisare-maskarak** erabiltzen dira. ETC-entziklopedia

Bakoitzak egin duen banaketa adierazteko, **azpisare-maskara** deritzon zenbaki bat erabiltzen da. ETC-entziklopedia

---

azpisarrera *iz* hiztegi batean, sarrera barruko atala, esapide edo hitz elkartu bati dagokiona eta paragrafo bat eratzen duena.

Horregatik, sarrera edo **azpisarrera** bereziak dituzte hiztegietan, non esamoldearen esanahia argitzen den. Iñaki Arranz

Frantsesezko tole hitzak, adibidez, bi **azpisarrera** izanen ditu, batetik burdin-xafla eta bertzetik presondegia. Berria - Euskal Herria

---

azpisektore *iz* zabalagoa den beste sektore baten barruan dagoen sektorea.

Eraikuntza eta Obra Zibila **azpisektoreek** bilakera desberdina izan zuten. Berria - Euskal Herria

---

azpisistema *iz* sistema bat banatzen den sistemetako bakoitza.

Sistema ekonomikoa ekosistema globalaren, hots, biosferaren **azpisistema** bat dela ulertzen du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Osasunaren **azpisistematzat** hartzen dugu guk eta medikuntza integratzailea izaten du oinarrizko kontzeptua, hau da, medikuntza naturalaren modalitate guztiak profitatu beharra daukagu, betiere zientziatik abiatuta. Berria - Gaiak

Alegia, ekonomia **azpisistema** ireki bat dela, baina beti ere itxia den ekosistema mugatu batean txertatutakoa. Iñaki Heras

Haren esanetan, euskal esparrua "ez da espainolaren **azpisistema** bat". Berria - Ekonomia

---

azpisuge *izond/iz* saldukeriak egiten dituena.

Hamabi aldiz egin dit orain arte txantxa hori **azpisuge** horrek, ziur naiz beti bat eta bera izan dela, eta orain abisatu nahi nioke gehiago ez dudala jasango. Koldo Biguri

Eta hiriaren ongile, herriaren babesle eta lege-betetzaile sutsu zen Onias gobernuaren kontrako **azpisugea** zela esatera ere ausartu zen. Elizen arteko biblia

Berak ez baitzuen inork izorratzea nahi eta, esan nuen eta berriro diot, izaeraz niri-dena-bost galanta zela eta bere ustez gizon guztiak **azpisugeak** eta zitalak zirela. Pello Lizarralde

Pikaroek edo **azpisugeek**, beren herrikideen sineskortasunaz abusatuz, beren eldarnio barregarriak hedatu dituzte: hauxe da, eta ez besterik, zaldunak zerua deitzen duena; hara zer laidotzeko beldur den! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Azpisuge horiek aztikerien bidez deabruarekin harremanetan jartzen dira. Patxi Zubizarreta

---

azpitalde *iz* talde bat banatzen den zatietako bakoitza.

Hari horri helduz, disposizioen artean **azpitalde** bat bereiz daiteke. Askoren artean

Bozek Dinamitaren ebasteko **azpitaldearen** ardura eman zion. Itxaro Borda

Gatazkaren konponbidea nazioartean ere sustatzeko **azpitaldea** sortu berri duela jakinarazi zuen atzo GKSBk. Berria - Euskal Herria

Oraindik gehiago zehatz dezakegu: sozialismo marxista hilobiaz honatago paradisua agintzen duten **azpitalde** horretakoa ere bada. Iñaki Heras

---

azpitestu *iz* zentzu ezkutua duen testua, agerikoa ez den testua.

Zentzu horretan film honek **azpitestu** politikoa dauka. Berria - Kultura

Baina testuan barrena sakontzen badugu, liburuan garatzen ari diren **azpitestu** esoteriko biez ohartu ahal izanen gara. Xabier Kintana

---

azpititular ik **azpititulu**.

---

azpititulatu, azpititula(tu), azpititulatzen du *ad* azpituluak ipintzea.

Izan ere, Sadek Andereño gazteen heziketarako solasaldiak **azpititulatzen** du liburua. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta kanpora begira **azpititulatu** egingo dugu, umore linguistiko handia baitu, eta bikoiztean galdu egingo luke. Berria - Harian

Ez da ohikoa espainiar telebistan euskalduna euskaraz entzutea, erdal itzulpena **azpititulatua** duela. Iñigo Aranbarri

Ostegun honetan Ikiru filma euskaraz **azpititulaturik** ikusteko parada izango da estreinakoz Donostiako Antzoki Zaharrean. Berria - Kultura

---

azpititulatze *iz* azpituluak ipintzea.

Mexiko gorrieneko pertsonaia bertan-beherakoek, nola ez, mexikarrez hitz egiten dute, mero mexicano, nola balira Mariano Azuelaren beraren seme-alaba Los de abajon, eta horregatik erabaki du Ripsteinek filma **azpititulatzea** ... gaztelera batuan! Iñigo Aranbarri

---

azpititulu 1 *iz* ikus-entzunezkoetan, behealdean agertzen den testua, esaten denaren itzulpen edo transkripzio laburtua dena. ik **azpidatzi**.

Bestalde, Bioletak ere behin Trueba zineman, **azpitituluak** zituen film bat ikusten ari ginela, esan zidan latako sardina usaina nuela. Ramon Saizarbitoria

Bagenekien **azpitituluekin** balizko ikusleak galduko genituela, baina berdin zitzaigun. Berria - Kultura

Fresanek italieraz abestuko du, baina **azpitituluak** jarriko ditugu jendeak haria ondo jarraitu dezan. Berria - Kultura

2 *(orobat **azpititular**) iz* idatzizko obretan, tituluaren aurretik edo ondotik ageri ohi den testua, berorren osagarri.

Dena den, **azpitituluak** bazuen bere garautxoa ere. Iñigo Aranbarri

Azpitituluak Barandiaran ere ekartzen digu gogora, Oteizak Ataungoaren liburu ezagunena parafraseatu duela baitirudi. Anjel Lertxundi

Ohiko poster edo iragarki batean ondorengo elementu hauek azaltzen dira, normalean: irudia, titulua, **azpititulua**, testua eta sinadura. Txema Ramirez de la Piscina

Saderen obraren **azpititulua** bera ere nahikoa esanguratsua da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Azpititulu ebidenteegitik sortzen da mesfidantza: Anaren bakardadea. Berria - Kultura

"Mugimendu separatista euskaldunak su-eten 'iraunkorra' ezarri du bihartik aurrerako, eta Espainiako Gobernuarekiko elkarrizketei ireki die atea", idatzi zuen **azpitularrean**. Berria - Harian

---

azpitropikal *(corpusean ez dago; ETCn **133** agerraldi)* *izond* tropikoen inguruko lurralde epelagoei dagokiena.

Zernahi den ere, gaur egun eskualde tropikaletan eta **azpitropikaletan** agertzen da gehien, batez ere herrialde pobreetan. ETC-prentsa

Zientzialariek uste dutenez, uretatik kanpo txango laburrak egiten zituen animaliak, klima **azpitropikaleko** ur meheko erreka geldoetan. ETC-prentsa

Badago eremu tropikal eta **azpitropikalean** ere: ondo egokitzen da ur epelagoetara. ETC-prentsa

Udaren amaieran migratzen dute berriro, eta alde tropikal edo **azpitropikaletara** abiatzen dira, ugaltzera. ETC-zientzia, zuzenbidea

Apiazeak landare kosmopolitak dira, baina gehienbat eskualde epeletan eta **azpitropikaletan** egoten dira presente. ETC-entziklopedia

Iturrien arabera, 49tik 70era genero eta 254-800 espezie inguru daude, jatorriz eskualde tropikal eta **azpitropikaletakoak** guztiak. ETC-entziklopedia

Klimak, Asiako montzoiak baldintzaturiko klima **azpitropikalaren** ezaugarriak dauzka. ETC-entziklopedia

Aldaketa termiko honek itsaslasterrarekin kontaktuan dauden kostaldeko eskualdeetako klima bereizten duten eraginak ditu: eurien erregimen **azpitropikalaren** bat-bateko aldaketa, hareatza eta Atacama basamortua bezalako kostaldeko basamortu hotzezko lerro bat sortuz. ETC-entziklopedia

Linophrynidae lofiformeen familia da, mundu osoko itsaso tropikal eta **azpitropikaletan** bizi dena. ETC-entziklopedia

Baso tropikal, **azpitropikal** eta epeletan bizi dira, itsasoaren altueratik 3.300 metroko altueraraino. ETC-entziklopedia

Yaeyama Uharteetan hainbat motatako espezie **azpitropikalak** eta landare tropikalak aurki daitezke, Mangladi mangladiez gain. ETC-entziklopedia

---

azpitxapeldun ik **txapeldunorde**.

---

azpiunitate *(corpusean ez dago; ETCn **428** agerraldi)* *iz* unitate baten barruko unitatea.

Fisiologia modernoaren aurrerapenik handiena, Renanek dioenez, biziduna bizi-unitate txikiagoen batura dela aurkitzea izan da, **azpiunitate** hauek harmonizatuak dihardutelarik guztiak kontzertu bat berean. ETC-literatura, saiakera

Azkeneko puntuan, berriz, hau aztertuko litzateke: ea hizkuntza-trebakuntza izan duten animaliek ulertzen duten ala ez sinboloak -hala nola Amerikar Keinu Hizkuntzaren keinuak- **azpiunitateak** direla, eta keinu berriak sortzeko birkonbina daitezkeela. ETC-literatura, saiakera

Orain badakigu hemoglobina molekula bakoitza lau **azpiunitate** antzeko samarrez osatua dela, eta bakoitzak 2.500 atomo inguru dauzkala, egitura tridimentsional zehatz batean paratuak. ETC-literatura, saiakera

Proteinaz eta RNAz osatuta dago erribosoma eta bi zatitan banatzen da: **azpiunitate** txikia eta **azpiunitate** handia. ETC-prentsa

Telebista-**azpiunitate** askok euren bizimodu burujabea dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Audioaren kontrol-mahaiak unitate erabat integratuak izan daitezke, edo, irudian ikusten den moduan, moduluka eginak (**azpiunitate** konektatuak). ETC-zientzia, zuzenbidea

Ikerketa estrukturalek erakutsi dutenez, hiru **azpiunitate** berdinez osatutako proteinak dira porinak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Proteina horietariko bakoitzak hiru **azpiunitate** ditu, a, ß eta?, pisu molekular handienetik txikienera ordenatuta. ETC-zientzia, zuzenbidea

Bakterioen proteinen sintesia 50S eta 30S **azpiunitateak** dituzten 70S erribosometan gertatzen da; eukariotena, aldiz, 80S erribosometan gertatzen da. ETC-entziklopedia

Abiada honetan, axoiaren zitohezurdura osatzen duten proteina **azpiunitateak** bezalako molekula agregatuak doaz. ETC-entziklopedia

Kapsomero izeneko **azpiunitatez** osatuta dago kapsidea. ETC-entziklopedia

Propietate elastikoak izateko polimeroek barne-oztopo gutxi izan behar dituzte beren **azpiunitate** monomerikoen ausazko mugimenduan eta ez dute berez kristalizatu behar (tenperatura normaletan, behintzat). ETC-entziklopedia

Jordaniako dinarrak 10 dirham, 100 piastra eta 1000 fil **azpiunitateak** ditu. ETC-entziklopedia

Hamahiru **azpiunitate** globularrez osaturiko eraztun antzera beha daitezke. **Azpiunitate** bakoitza 4-5nm-takoa, gune zentral baten inguruan antolatzen da mikrotubuluaren horma eratuz. ETC-entziklopedia

---

azpizatiketa *iz* zatiketa baten barruko zatiketa.

Bere baitan erabat indeterminatua den zatien kopurua, zatiak berak, ostera, **azpizatiketaren** bitartez soilik ematen eta determinatzen direnean. Ibon Uribarri

Hiruko **azpizatiketa** hori, esan behar da, gaitzetsi egin zuela Albertik, ukatu egiten baitu scaenographia baliabide arkitektoniko hutsen artean sartu behar denik, askoz ere kutsu piktorikoagoa duenez izaeraz. Santiago Iruretagoiena

Eskatzen duen perpausaren **azpizatiketa** eta do aditza txertatzen duen erregela beharrezkoak dira dagoeneko ezeztapenerako. Itziar Laka

---

azpizentzu *iz* ezkutuko zentzua.

Gauza zailagoa baita, hain zuzen, esaldia nahi bezala erabili ahal izatea, esaldiari dena, baita esaten ez duena ere, esanaraztea, **azpizentzuz** ezkutuko asmo esan gabez betetzea, adierazkera berriak asmatzea baino. Josu Zabaleta

Orduan ez nuen oso aintzat hartu, gure artean atertu gabe elkarri esaten dizkiogun **azpizentzu** sexualeko beste esaldi bat bezala ulertu nuen. Koldo Izagirre

---

azpizigilu *iz* zigilu nagusi baten mendekoa, eskuarki diskogintzaz mintzatuz.

Elkar disketxeak kaleratu zuen orduan, Emak Bakia **azpizigiluaren** barruan. Berria - Kultura

Modu horretan, bai Esan Ozenkik bai Metakek beren **azpizigiluen** bitartez (Gora Herriak, Altermetak, Pil-Pil Sessions) kalean jarritako diskoak ere banatuko ditu Elkarrek. Berria - Harian

---

azpizulatu, azpizula(tu), azpizulatzen du *ad* kalte egin, prestigioa galarazi.

Konfiantza **azpizulatu**, eta Ostiral Santuko Akordioari kalte egiten dio, eta DUPren eta aldaketaren kontra daudenen mesederako da hori" Berria - Mundua

Aurki eratzekoa den Palestinako Aginte Nazionaleko gobernua **azpizulatu** eta galbidean jartzeko Washingtonek eta Tel Avivek ustez dituzten planak gaitzetsi zituen atzo Hamasek Berria - Mundua

Terroristek izua, etsipena eta gorrotoa eraman nahi dute jendearen bihotzetara, baina ez dute beren helburua lortuko, ezta gure demokraziak **azpizulatuko** ere. Berria -

Harian

---

azpizun *iz* abereetan, bizkarraren eta saihetsen arteko haragi zerrenda, sukaldaritzan guztiz aintzat hartzen dena. ik **solomo**.

Menua bakarrik: zizka-mizkak, entsalada, arrain-zopa eta bisigua edo **azpizuna**. Urtzi Urrutikoeetxea

Bizimodu apala egiten bazuten ere, ondo jatea gustatzen zitzaien; onenetik dena: **azpizuna**, hiru txelineko tea, botilako garagardo beltz onena. Irene Aldasoro

Benetan, solomoa edo **azpizuna** edo haragi egosia? Karlos Linazasoro

---

azpizuri *(corpusean ez dago; ETCn **39** agerraldi)* **1** *izond* gorputzaren azpialdea zuria duena, eskuarki animaliez mintzatuz.

Prudentzio Abendañok eta Juan Muxikak, esku batean hegazti izter bana eta bestean ogi zati ederra zutela, han inguruan zeuden txakur **azpizuriek** baino zarata gehiago egiten zuten ahoko hegazti erreak irenstean. ETC-literatura, saiakera

Inguruko ahuntzen lehiaketa ere izango da goizean, azpigorri eta **azpizuri** arrazakoena. ETC-prentsa

1996tik herrian "Ahuntz Eguna" ospatzen dute ekainaren aldean, ahuntz animalia honen inguruko azoka antolatuz. Ekitaldien artean, Gorbeia aldeko arrazak diren **Azpizuri** eta Azpigorriren arteko lehiaketa eta Garrastatxuko baselizara egindako ibilaldia ditugu, besteak beste. ETC-entziklopedia

Arrunt txori ezaguna denez, ez da harritzekoa izen eta aldaera ugari izatea euskaraz: ainara, ainhia, **azpizuri**, beletxiko, bragaro, elai, enabera, enara, erlai, ernara, hegabera, hegoazpizuri, iñara, ipurzuri, kulentriña, mitxigu, ninera, txenara, zagaro.. ETC-entziklopedia

2 ***bele azpizuri*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Bele azpizuri. Corvus albus. ETC-entziklopedia

3 ***enara azpizuri*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Hirietako hegaztiak ere -enara, **enara azpizuria** ...- gain behera doaz, nahiz eta batzuk ongi moldatu diren ingurura, usoak kasu. ETC-prentsa

Ez da tradizionala eta euskalduna enara eta **enara azpizuri** bat bereizten jakitea, ez da bertakoa erbinudearen oinatzak bereizten jakitea edo erreka bateko arrain espezieak bereiztea. ETC-prentsa

Enara azpizuri "Delichon urbicum". ETC-entziklopedia

4 ***ganga azpizuri*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Hegaztien artean, aipagarriak dira estepako hegaztiak: **ganga azpizuria** eta azpibeltza, landa-txirta, atalarra, ezkal-txinboa, Dupont hegatxabala... ETC-prentsa

---

aztakatu ik **haztakatu**.

---

aztal **1** *iz* orpoa.

Denbora anitz iragan zen hura atera artean, eta egin zuenean, buru gainetik **aztaletarainoko** kapa batez estali figura batekin zetorren. Elena Touyarou

Erran behar zen ohea zaplastatu zioten gehienek, izaera eta gorputzaren ahalkean ihalozka, **aztal**-ukaldi batez ito zutela. Itxaro Borda

Eguerdiko salda ez zen etxekoaren **aztalera** heltzen. Eneko Bidegain

Harritu nintzen jakitearekin **aztaletan** norbait banuela barrandan. Marzel Etxehandi

Eta berdin gaur egun, Unamunoren **aztalera** heltzen ez direlako aipatuko ez ditugun izpiritu zabal eta "liberal" batzuen ahotan? Piarres Xarriton

Mariak, **aztalen** gainean eseri, eta luzaro aztertu zuen biribila, arreta handiz: etsi egin behar izan zuen, hala ere, ez zela inolako irtenbiderik. Juan Garzia

2 *iz* orkatilatik belaunera doan zango zatia, bereziki atzeko alde mamitsua. ik **berna**.

Gorputzak arin-arin egiten dute igeri: alegia, lanazko atorra luze batzuekin belaunetarainokoak, **aztalak** agerian. Koldo Izagirre

Halaxe ageri zen Sabeth nire gainean, edo nire aldamenean, hobeto esanda: lehenik bere espartinak, gero bere **aztal** biluziak, eta izterrak, ikuspegi murriztu hartan ere lirain askoak, ondoren bere pelbis galtza bakero atezatuetan hertsia; esku biak patriketan sartuak, zutik. Joxe Austin Arrieta

Ez nuen gehiago indarrik, zangozola odoletan nuen, **aztal** beharriak bihurtuak, ezker belauna guduan kolpatua eta orai hauntua, ez nintuen gehiago atxikitzen. Michel Oronoz

Eta kasu emateko oihan eta larreetan, zango-**aztalak** marruskaduraz beterik ekarri baitzituen lehengo asteburuan. Aingeru Epaltza

3 ***aztal-belarri*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Gavin Brett protestante gaztea hil zen eta haren adiskide min katoliko gazte bat **aztal-belarrian** zauritu, Glenglormley aldean, Belfast iparraldean. ETC-prentsa

Mixelek erakutsi zizkieten lepoa, eskumuturrak, **aztal belarriak**. ETC-literatura, saiakera

Giza anatomian, orkatila, **aztal-belarri** edo axiroina oina eta hanka lotzen diren tokian eratutako artikulazioa da. Hiru hezurrek osatzen dute: Tibia, peronea eta tortolos astragalo edo tortolosa. ETC-entziklopedia

4 ***aztalak jan***

Eta hau ez da **aztalak jatea**, baizik gauzei bere izena ematea. Pello Salaburu

Jendea besteri **aztalak jaten** abila eta prestua dela edonon ere! J.M. Olaizola "Txiliku"

Listoni **aztalak jaten** zizkion: "Itsusia da eta ni aldiz, ederra". Ramuntxo Etxeberri

---

aztalka **1** *adlag* zilipurdiak eginez.

Alferrik nindoan **aztalka** eta protestaka, indarrez erantzi zizkidan soinetik arropak, alferrik saiatzen nintzen ukabilaz haren gorputzera, haren aurpegira iristen, ur hotzez igurtzi zidan azal dardaratia. Urtzi Urrutikoetxea

Aztalka eta zilipurdika ihes egin nahi izan nuen. Aingeru Epaltza

Zoruan **aztalka** ari zen, ume bat bezala. Joxe Austin Arrieta

2 *iz* zilipurdia. ik **aztalkada**.

Haren makakorroak eta haren **aztalkak**, espaloian dendakoek ama laster etorriko dela agindu eta sinetsarazi dioten arte. Pako Aristi

---

aztalkada *iz* zilipurdia. ik **aztalka**.

Aztalkada xumeaz langile batek purruskak lohiarekin nahastekatu zituen; handik laster hobiaren sakona baizik ez zen ageri. Itxaro Borda

Bat-batean lotsak ninderoan: etxe zolan, urrunean itorik bezala, haur negarrak hauteman nituen, **aztalkada** astunak eskaileretan gora igotzen eta antsiak bereganatu ninduen. Itxaro Borda

---

aztalkari *iz* errugbian, lehenengo lerroaren erdian kokatzen den jokalaria, orpokatzeaz arduratzen dena. ik**orpokatzaile**.

Aztalkariak, halere, haiengan erabateko konfiantza duela adierazi du. Berria - Kirola

Hill **aztalkariak** baloia ebatsi, Dambielleri pasea egin, gibelekoak korrikaldi luzea egin hegaletik, zangoz jo eta Hill heldu lehena baloia pausatzeko. Berria - Kirola

---

aztalkatu, aztalka(tu), aztalkatzen du *ad* goitik behera ibili.

Eta negu beltzeko elurte zurietan, goseak ebakitako larrabere gaixoak ote mordoaren gaineko elurrik haundixkona besoekin **aztalkatu** eta, arantzezko pukadu berderen bat edo beste ahora eraman nahian ikusteak, nor ez ote du hunkitu edo errukitu? Patziku Perurena

Ekialdetik sartaldera hiria **aztalkatzen** genuen gero, eleka, maiz isilik, iraganbidea, bakardade metatuen pean hazi maitasun beharraren eremuen urrakoa bailitzan. Itxaro Borda

---

aztalpe *iz* oinazpia.

Legar xehe-xehezko hondartza zabal hartan ibili ziren, luzaz, xirla xuri ñimiñoak **aztalpetan** kraskatzen zitzaizkiela. Aurelia Arkotxa

Graxi mutu geratu zen, mundu osoa **aztalpean** lehiatzen zuen arbidetar abertzale-feminista haren zinkurinak behatzean. Itxaro Borda

---

aztapar *iz* atzaparra.

Anartean behar ditu ardien **aztaparrak** artatu, hori baita artzain lanetan nekeena eta zikinena. Michel Oronoz

Jokatuagoa izan da partida hau, oren bat eta hiru laudenez eta galtzaleetan ikusi dugu Retegui bat arras gustagarria: pilota biltzale abila, **aztaparra** erne, sare batzu kuriosak egiten. Herria

Nekez lortu du haien **aztaparretatik** askatzea eta xoko batera joatea galdera batzuei erantzuteko. Berria - Kultura

Egiaz neskak ez zuen ulertzen zergatik euskarazko ehortz-elizkizunetan, tristezia larriaren **aztaparretan** behera amiltzeko ordez, abesteko gutizia oldartzen zen herritarren bihotzetan. Itxaro Borda

Goibel dirudi, patu baten **aztaparretan** hartua balitz bezala. Piarres Aintziart

Errukigabeko jarraipen baten **aztaparretan** nintzen, nahi banuen egoera jasangarria bilaka zedin. Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aztapar ukaldi** (6); **bere aztapar** (5)
> **aztaparra erne** (3); **bere aztaparra** (4)
> **baten aztaparretan** (3)

---

aztaparkatu, aztaparka(tu), aztaparkatzen *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **atzaparkatu** agertzen da)* **1** du *ad* atzaparra ezarri, atzaparrez jo. ik **atzaparkatu**.

Handik laster jin zen Marcel, deabruak bainatzen ikusi eta batek kasik **aztaparkatu** zuela oihuka. Berria - Kultura

2 du *ad* atzaparrez arakatu.

Nork ez du **aztaparkatu** "Haize Garbia" hiztegi malgua. Herria

Gerriko gantzazko eraztun trinkoak **aztaparkatzen** niozkan eta lauzpabost errain-ukaldiz basamortua inarrosiko zian oihua largatzen nian, esneak alde guzietarik euri irristatzen eta zaplastatzen gintuela. Itxaro Borda

---

aztar *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi) iz* aztarna.

Baina, izan gaitezen errealistak, daramagun bizimodu honekin ez daukagu asti askorik mapetan uxarka aritzeko, turismo gidetan **aztarrean** ibiltzeko, GR eta PR ibilbideen zailtasun mailak neurtzeko. ETC-prentsa

Aztar bat baino ez daukate: desagertutako zientzialari alemaniar baten alaba. ETC-entziklopedia

---

aztarka *(ETCn **35** agerraldi; orobat **azterka** ETCn **45** agerraldi eta **aztarrika** ETCn **361** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **azterka** eta **aztarrika** agertzen dira) adlag* sakon arakatuz. ik **azterka**; **aztarrika**.

Aurrean barreiatuta zituen dosier batzuetan **aztarka** hasi zen. Matías Múgica

Aztarka aritzera behartu dut neure burua, neure bilbo horien bila. Iñigo Aranbarri

Joan den urtean Goizuetako udal artxiboan **aztarka** nenbilela, 1427 garren urteko apeo batekin egiten nuen topo. Patziku Perurena

Orduan ohartuko zen Asier ikaskideak zenbat behar zuen bera bere ondoan, eta dohain berriak aurkituko zizkion bere izaera arruntean beste begi batzuekin **aztarka** hasi orduko. Pako Aristi

---

aztarna **1** *iz* zerbaitek uzten duen edo gauza batetik gelditzen den seinalea. ik**aztarren**; **arrasto**.

Eta misterio horren **aztarna** gordetzen dugu oraindik, esne, esna, esnatu, hitzen bidez, argitasuna, jakinduaria, izpiritua adieraztean. Patziku Perurena

Aztarna biribilak utzi zituen urak orrialdeetan. Jon Muñoz

Orduak eman nituen eraikin sendo baina antigoaleko hartan 1973ko mikrofilmak arakatzen, baina ez nuen **aztarnarik** topatu. Iñaki Zabaleta

Hasieran, gortinak garbitzen nituen bezperan kearen usain arrastoa, nire bekatu txikiaren **aztarna**, haiei erantsita geratuko zen beldurrez. Arantxa Iturbe

Saiatuko naiz bidaia luze horren **aztarnak** biltzen; saiatuko naiz gizon hau harrapatzen. Pako Aristi

Dotorea ez ezik zaharra ere bada eliza horren lehen **aztarna**. Xabier Mendiguren Elizegi

2 *iz* gertakari bat adierazten duen seinalea. ik**zantzu**.

Eta, hori dela bide, Labartzan sentituko nuen sargori sapa itsaskorraren **aztarnarik** ez. Txillardegi

Zahartzearen hondatze progresiboaren **aztarnak** modu naturalean, espanturik gabe ageri dira hemen, eta nik ez dakit zein esperientzia izan duen egileak horretarako, ez diot galdetu nahi izan, arte-lanaren atzeko background-a bere kontua delakoan. Unai Elorriaga

3 ***aztarna ekologiko*** *(ETCn **378** agerraldi)*

Hurrengo orrialdeetan, berriz, izaera desberdineko bi adierazle aztertuko ditugu: **aztarna ekologikoa** eta giza garapenaren indizea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Iraunkortasunaren esparruan, gizarte baten helburuak gaitasun ekologikoa gainditzen ez duen **aztarna ekologikoa** izatea izan behar luke; de? zit ekologikoa hutsekoa izatea alegia. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

4 ***aztarna hartu*** aztertu.

Orduan epaileak paper zurian haren behatzaren **aztarna hartuko** du eta gero paperean berak nahi duena idatziko du Azkenean senarra hobengabe dela aitortzeko. Gotzon Garate

Baina alemaniarrak zilarraren **aztarna hartzen** zuten trikimailuekin etorri eta bailara bat baino gehiagotan ibili zituan metal bila, eta baserritarrak beldurrez aidean. Pako Aristi

5 *aztarna hidriko* *(corpusean ez dago; ETCn 9 agerraldi)*

Ur-aztarna edo **aztarna hidrikoa** ondasunak edo zerbitzuak ekoiztean edo kontsumitzean erabiltzen den ur gezaren kantitatea da. ETC-entziklopedia

Kontsumitutako produktuen ur birtualaren kopuru osoari, aldiz, **aztarna hidrikoa** esaten zaio. ETC-prentsa

Erriberan, Nafarroako bertze edozein tokitan baino handiagoa da **aztarna hidriko** grisa. ETC-prentsa

6 *hatz-aztarna*

Etxe Zuriko Segurtasun Nazionalerako Departamentuaren arabera, **hatz aztarnak** eta argazkiak jasotzeko hamabost segundo baino ez dira behar izango. Berria - Mundua

Condor Operazioko hilketak salatu zituzten abokatuen arabera, "Pinocheten **hatz-aztarnak** hilketa bakoitzean daude, ezabaezinak dira eta Auzitegiak ikusi egin ditu». Berria - Mundua

Zorionez, Dianneren **hatz-aztarnak** hartu nituen bere etxean. Fernando Morillo

Aldamenean, mahai txiki bat ikusi duzu, eta gainean arrabola eta **hatz-aztarnak** jasotzeko txartelak daude kaxa koxkor batean gordeta. Rafa Egiguren

7 *hatz-aztarnak hartu*

Bitartean **hatz aztarnak hartuko** dizkiete, irakurketa optikoa egiten duen laser sistema baten bidez. Berria - Mundua

Zorionez, Dianneren **hatz-aztarnak hartu** nituen bere etxean. Fernando Morillo

8 *karbono aztarna* *(corpusean ez dago; ETCn 46 agerraldi, horietatik 32 azken sei urteetan)*

Karbono aztarna erakunde, gertaera, produktu eta pertsona guztien multzoak eragin (edo eragiten) dituen gas berotegi efektuko gasen kantitate totala da. ETC-entziklopedia

Ondorioak behar bezala ulertzeko ezberdintasuna da hitz gakoetako bat: **karbono aztarna** txikiena dutenak dira ondorio larrienak bizi (ko) dituztenak. ETC-literatura, saiakera

Hortaz, gure **karbono-aztarna** handitzen ari ei da, besteak beste, fabrikek behar duten energia elektrikoa erregai zikinagoen bidez lortzen delako Europan baino, ikatzaren bidez, adibidez. ETC-literatura, saiakera

Baserri baten eraikuntzaren inpaktua aztarna ekologiko, **karbono-aztarna** edo kostu energetikoen arabera neurtzea nahiko paradoxikoa da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrez gain, artalde honetan ezarritako jarduera erregeneratibo guztien baturaz sistemaren **karbono aztarna** gutxitzea lortzen da. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala balitz ere, egungo plastikoen oinarria jatorri fosila da eta, beraz, izatez jasangarriak ez izateaz gain, **karbono-aztarna** handia dute. ETC-zientzia, zuzenbidea

Barnekoari dagokionez, Gurutze Gorriak **karbono aztarnaren** gastuari buelta emateko konpromisoa ere hartu du, eta kudeaketa hobetu egin du, Kudeaketa Aurreratuaren Ereduari buruzko ebaluazioa gainditua. ETC-prentsa

Hidden impactstxosteneko aurkikuntzetan oinarritu dira lurreko aztarna ekologikoa, **karbono-aztarnak** eta beste kalkuluak izan daitezen erabakien abiapuntua. ETC-prentsa

Gizakiak sorrarazitako karbonoa jotzen da klima aldaketaren erantzule nagusitzat, eta horren eragina zenbatu ahal izateko **karbono aztarna** kontzeptua ere eguneroko hizkeran sartu da. ETC-prentsa

Eurek zaintzen dituzte gure basoak, gure **karbono-aztarna** murriztu dadin ahalbidetuz eta bide batez inguru iraunkor eta osasuntsuago baten bizi gaitezen lan egiten dute. ETC-prentsa

Abeltzain asko **karbono aztarna** gutxitzeko egiten ari diren lana ere goraipatu dute. ETC-prentsa

9 *matrize baten aztarna* *(corpusean ez dago; ETCn 5 agerraldi)*

Lehen eta azken berdintzak 10.16 atalaren ondorioak dira, eta hirugarrena, **matrize baten aztarnaren** definizioaren ageriko ondorioa. ETC-zientzia, zuzenbidea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken aztarna (5); **aztarna argiak** (4); **aztarna arkeologikoak** (6); **aztarna asko** (3); **aztarna bakarra** (7); **aztarna bat** (11); **aztarna batzuk** (9); **aztarna bila** (3); **aztarna ekologikoa** (13); **aztarna ekologikoaren** (4); **aztarna gehiago** (4); **aztarna guztiak ezabatu** (4); **aztarna guztiek** (4); **aztarna guztien** (4); **aztarna handia** (3); **aztarna hori** (3); **aztarna horiek** (18); **aztarna horien** (3); **aztarna oro** (4); **aztarna sakona** (3); **aztarna sakonik** (3); **aztarna txiki** (3); **aztarna utzi** (5); **aztarna uzten** (4); **aztarna zaharren** (3); **baten aztarna** (16); **beraren aztarna** (3); **bere aztarna** (3); **beren aztarna** (3); **beste aztarna** (3); **bizi aztarna** (3); **diren aztarna** (3); **duen aztarna** (5); **edo aztarna** (4); **hainbat aztarna** (6); **haren aztarna** (11); **horren aztarna gordetzen** (3); **oraindik aztarna** (3); **utzitako aztarna** (4); **zenbait aztarna** (5); **zuen aztarna** (4)

azken aztarnak (9); **aztarnak agerian** (3); **aztarnak aurkitu dituzte** (14); **aztarnak aurkitu zituzten** (3); **aztarnak azaltzen** (3); **aztarnak bilatzen** (4); **aztarnak dira** (7); **aztarnak dituela** (3); **aztarnak edo** (4); **aztarnak erakusten** (4); **aztarnak ere aurkitu** (4); **aztarnak ez** (3); **aztarnak ezabatu** (4); **aztarnak jaso** (3); **aztarnak oroimenean** (3); **aztarnak topatu ditu** (3); **aztarnak ziren** (4); **baten aztarnak aurkitu** (12); **bere aztarnak** (3); **garaiko aztarnak** (3); **haren aztarnak** (7); **hatz aztarnak** (9); **horren aztarnak** (7); **lehen aztarnak** (5); **utzi dituen aztarnak** (3); **zaharraren aztarnak** (3)

aztarnaren bat (14); **aztarnaren bila** (3)

aztarnarik aurkitu (9); **aztarnarik batere ez** (3); **aztarnarik ere ez** (7); **aztarnarik ez uzteko** (7); **aztarnarik gabe** (6); **aztarnarik ikusten** (3); **aztarnarik topatu** (3); **aztarnarik utzi gabe** (17); **aztarnarik uzten** (3); **baten aztarnarik** (4); **batere aztarnarik** (3); **beste aztarnarik** (3); **ezein aztarnarik** (3); **haren aztarnarik** (6); **horren aztarnarik** (8); **inongo aztarnarik** (3)

aztarnei jarraituz (3)

aztarnen arabera (3); **aztarnen atzetik** (4); **aztarnen bila** (4)

---

aztarnari *izond/iz* zerbaiten aztarnei jarraitzen diena.

Buruan zeukan bakarra txakur **aztarnariak** ziren, nahiz Hi Manek esan zuen euriak ezinezkoa egin ziela lana. Anton Garikano

Aztarnariak, ordea, harri baten atzera jauzi eginez, gezia jaurtiki zion begira. Agustin Otsoa

---

aztarnategi 1 *iz* lehen gizakiaren hezurren eta tresnen aztarnak aurkitu diren tokia.

Euskal mendietako **aztarnategietan** apenas azaltzen dela larreko barraskilo jaleen aztarnarik, eta euskal herritarron helikofobia, historiaurretik datorkiguna izan daitekeela. Patziku Perurena

Aztarnategi batean bezala jarrai nezakeen Monikaren ibilbidea eta bere maitasun handien historia egin. Joxean Agirre

Duela 8.300 urte, Kantauri kostaldeko biztanleak itsasora joaten ziren arrantza egitera, eta arrainek osatzen zuten haien elikaduraren erdia, Asturiasko, Kantabriako eta Euskal Herriko zenbait **aztarnategitan** aurkitutako giza hondakinen azterketak erakutsi duenez. Iñigo Aranbarri

Aztarnategiko irudiak imitatu zituen koadernoan -zaldiak batez ere, baina bestelakoak ere bai- eta zaldi ederrak marraztu zituen. Unai Elorriaga

2 *arkeologia aztarnategi* *(corpusean ez dago; ETCn 157 agerraldi)*

Arkeologia aztarnategia lehenaldiko jardueren frogak (historiaurrekoak zein historiakoak) gordetzen dituen tokia edo tokien multzoa da, arkeologiaren bitartez ikertua edo ikertzekoa. ETC-entziklopedia

Atapuerca **arkeologia aztarnategia** garrantzitsua da pertsonen bilakaera ezagutzeko. ETC-prentsa

Hurrengo 16etan **arkeologia aztarnategiaren** azalpena ematen da, azalekoa soilik, Praileaitzen garrantzia azpimarratzeko nahikoa. ETC-prentsa

Hirurak daude babes bereziko gune izendatuta, **arkeologia-aztarnategiekin** batera. ETC-prentsa

XVI. mendean, balea arrantzaren portu oso garrantzitsua izan zen Labrador, eta, gaur egun, izugarrizko **arkeologia aztarnategia** dute. ETC-prentsa

Baina ofizio ez duena, afizio gisa hartu du, eta **arkeologia aztarnategi** garrantzitsuak aurkitu ditu. ETC-prentsa

Arrolako Oppiduma eta Arrolako **arkeologia aztarnategia** ezagutzeko bisita gidatuko du Juan Jose Cepedak igandean. ETC-prentsa

Jendeak uste baino **arkeologia aztarnategi** gehiago daude. ETC-prentsa

Datu espezializatuagoen artean, berriz, profil sismikoak, **arkeologia aztarnategi** bateko aztarnen banaketa edo migrazioei buruzko estatistikak aipa daitezke. ETC-zientzia, zuzenbidea

3 *aztarnategi arkeologiko* *(ETCn **352** agerraldi)*

Freudek, esate baterako, gogamena **aztarnategi arkeologikotzat** irudikatzea zuen gogokoen, eta geruzaz geruza antzinako estratu lurperatuz betea (baina, aztarnategi hartan, geruza horietako edozein igo zitekeen kontzientziara noiznahi). Xabier Olarra

Aztarnategi arkeologiko garrantzitsua da Zarauzko parrokiakoa, eta horren inguruko ikerketek aurrera egiten laguntzeko borondatea agertu dute Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaketa euren gain hartuz. Berria - Kultura

---

aztarren 1 *iz* aztarna, arrastoa.

Geroztik egin diren esperientzia askok **aztarrenak** eman dituzte gizakiak ere era horrexetako zelulak dituela uste izateko. Josu Zabaleta

Behean, dagoeneko ez dago ez udaltzainen ez anbulantziakoen **aztarrenik**. Berria - Kultura

Horren ondotik ospa egingo nikek **aztarrenik** utzi gabe. Patxi Zubizarreta

19:15ean eten zituzten bilatze lanak, 41 urteko emakumearen **aztarrenik** inon aurkitu gabe. Berria - Euskal Herria

Asia eta Afrika aurkitu ziren, aurrez haien ertz batzuk besterik ez baitziren ezagutzen, eta Amerika aurkitu zen, haren **aztarrenik** ere ezagutzen ez zelarik. Iñaki Iñurrieta

Jendeen gogoan bai ordea; jendeen gogoan gelditu da, edo jaio da, Jainkoaren hiltzaile izate horren **aztarrenik** edo goganbeharrik. Iñaki Segurola

Ez nion grazia izpirik egiten zionik adieraz zezakeen **aztarrenik** igarri, eta barregarri sentitu nuen neure burua. Ramon Saizarbitoria

Basoan, garoaren **aztarrena** galduta, bidezidor bati jarraitu genion arboladian barrena puska batean. Inazio Mujika Iraola

Ez artxiborik, argazkirik, ez eta euren bizitzako urratsen **aztarrenik**. Joxan Elosegi

2 *aztarrenak atera* *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Behin **aztarrenak aterata**, mahatsondoak (Vitis vinifera) sendabidean jartzeko, aurrea hartzeko zein tratamendu eginez atzea nola dantzatu badakigu. ETC-prentsa

Audiokapsula aurkitu, zure ahotsa entzun, eta **aztarrenak ateratzera** zihoan. ETC-literatura, saiakera

3 *aztarrenak hartu* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Aitzitik, giza taldeek ausart jokatu izan dute biziaren **aztarrenak hartu** nahian. ETC-prentsa

Ez zuen zentzurik Alvise edo Riverre bidaltzea **aztarrenak hartzera**, ez behintzat laborategikoek esan arte zuzendariaren aztarrenez gainera bazirela beste norbaitenak ere. ETC-literatura, saiakera

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aztarren bat** (9); **aztarren bila** (3); **baten aztarren** (4); **ere aztarren** (3)
> **baten aztarrena** (3)
> **hiltzaileen aztarrenen bat** (3)
> **aztarrenik ere ez** (7); **aztarrenik ez** (18); **aztarrenik gabe** (6); **aztarrenik ttikiena ere** (4); **aztarrenik utzi** (5); **haren aztarrenik** (7)

---

aztarrika 1 *adlag* lurra harrotuz. ik **induska**; **azterka**; **aztarka**.

Ez naiz inoiz lurrean **aztarrika** edo habien bila aritu, ez ditut belar bildumak egin, ez dizkiet harriak bota txoriei. Berria - Harian

Altamira ere mendean hartu zuten Abadiñokoek, eta **aztarrika** handirik atera gabe. Berria - Kirola

Leihotik oilo arrotz bat bere baratzean **aztarrika** ikusten zuen edonork eskubidea zuen fusila hartu eta bi aldiz tiro egiteko hari: in fraganti behar zuen, haatik. Juan Garzia

Konkorra zutitu egin zen eta atso baten itxura hartu zuen, baratzean **aztarrika**, belarrak batzen. Javi Cillero

Haranzko hegian bistatzen da sorterria, zuhaitz artean erdigaldua; larrean abere batzuk bazkan, eta honantzago hegazti ilun batzuk, euri ondoko lur hezear **aztarrika**. Patziku Perurena

2 *adlag* sakon arakatuz.

Ez da nire asmoa pasatako mixerietan **aztarrika** ibiltzea: mixerablea litzateke hori. Pello Zabala

Zaude pixkatean, eta utziezu nere hitzei atrebentzia puskat hartzen eta zure bihotzondo adabakitu horretan **aztarrika** aritzen. Iñaki Segurola

Patriciaren bizitzan atzera egin, eta jaio zenetik azkenekoz ikusi zuen artekoa berritzen zuen bere erruen bila, iraganean **aztarrika**. Xabier Montoia

---

aztarrikatu, aztarrika(tu), aztarrikatzen 1 du *ad* lurra harrotu. ik **induskatu**.

Artega **aztarrikatu** du lurra, arrastoren bat aurkitu nahian, alferrik. Javi Cillero

"Holako espedizioak", esan zuen Ramsay jaunak, oin muturrarekin lurra **aztarrikatuz**, "oso mingarriak dira". Anton Garikano

2 du *ad* sakon arakatu.

"Hobe beharrez" erantzungo zidaketen haiek, baina saia nadin erantzun horren azpian zertxobait arakatzen, **aztarrikatzen**. Xabier Mendiguren Elizegi

Geure indarrez, geure trebeziaz **aztarrikatuko** genuen misterioaren sabela: zintzurretik helduko genion Proteori, bertatik etengo haren metamorfosi ezertaragabeak, Platonetik Agustinera, Agustinetik Tomasera, Tomasetik Hegelera, Hegeletik Crocera. Juan Garzia

Paper zaharretan ondo **aztarrikatu** eta gero, gehienez ere, azken zenbat urtetako berri jakingo genuke? Pello Zabala

---

aztatu ik **haztatu**.

---

azteka 1 *izond* mexikoko antzinako herri batekoa; herri horri dagokiona.

Totem-makila bat zen masta, arranoak ziren hegazkina, eta pintura **aztekaz** dekoraturik ageri ziren leihoak. Irene Aldasoro

2 *iz* herri horretako herritarra.

Aztekek antzinatik ezagutzen zuten eta urarekin egindako nahaste edo irakina erabiltzen zuten jaki bezala: txokolatea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Adituen esanetan, **aztekak** harro sentitzen ziren euren burua jainkoei eskaintzen zietenean. Berria - Gaiak

Aztekek eta maiek ere bazituzten beren egutegiak, oso ongi zehaztuak. Pello Salaburu

Gure hondakin-bilatzailea, hura bai ari zela beti kalakan; eta, egia esan, arreta pixka bat jarriz gero, jardun interesgarri samarra izaten zen harena: toltekak, zapotekak, **aztekak** aipagai, tenpluak eraikitzen bai baina gurpila zer zen ez zekitenak. Joxe Austin Arrieta

3 *azteka erlijio* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Jatorrian lurreko ura irudikatzen zuen, lumadun sugeak zeruko ura irudikatzen zuen bitartean. Ezagunagoa da mitologia **azteka erlijioan**. Aztekek umeak sakrifikatu zituzten jainko hau ohoratzeko, Tlaloc lehorte garaien eta zaparraden arduradun bezala baitzuten. ETC-entziklopedia

4 *azteka inperio* *(ETCn **22** agerraldi)*

Mimodramak eta ikonoak poema liburuak bi erakusketa gogoratzen dizkit: Gizakiaren adinak eta **Azteka Inperioa**, hain zuzen ere. Berria - Harian

5 *azteka mitologia* *(corpusean ez dago; ETCn **24** agerraldi)*

Eskultura aipagarrienak tenpluetarako eskultura erraldoiak dira; erlijiosoak dira gehienak, **azteka mitologiarekin** eta jainkoekin lotuak. ETC-entziklopedia

Bere izena **azteka mitologiako** Quetzalcoatl jainkoagatik jasotzen du. ETC-entziklopedia

Centzon Huitznahuacak (nahuatlez "Larehun edo Kontaezinbeste Hegoaldetarrak") mitologia azteka edo **azteka mitologian** Hegoaldeko izarren jainkoak ziren. ETC-entziklopedia

Chalchiuhtlicue (nahuatlez chalchiúhuitl-cuéitl, harribitxi-gona, Harribitxizko gonaduna) **azteka mitologian** aintzira lakuen eta ur korronteen jainkosa da. ETC-entziklopedia

6 *erlijio azteka* *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Filosofia moralizatzaileek ez bezala, **erlijio azteka** ez zegoen paradisu-infernu edo gaizkia-ongia problematikan oinarritua. ETC-entziklopedia

7 *inperio azteka* *(ETCn **25** agerraldi)*

2005ean Guggenheimen **Inperio Azteka** zeritzon erakusketa ikusteko aukera izan nuen. Berria - Harian

8 *mitologia azteka* *(corpusean ez dago; ETCn **38** agerraldi)*

Mitologia azteka azteken erlijio oinarritzen zen mito eta sineskeren multzoa da. ETC-entziklopedia

Xochipilli **mitologia azteka** edo azteka mitologian maitasunaren, jokoen, edertasunaren, dantzaren, loreen, artoaren, gozamenaren, arteen eta kantuen jainkoa zen. ETC-entziklopedia

Centzon Huitznahuacak (nahuatlez "Larehun edo Kontaezinbeste Hegoaldetarrak") **mitologia azteka** edo azteka mitologian Hegoaldeko izarren jainkoak ziren. ETC-entziklopedia

---

aztekar *(corpusean ez dago; ETCn **49** agerraldi)* **1** *izlag* azteka.

Espainiarrek, beti bertakoen toponimiaren babesle porrokatu, "Nueva España" bataiatu zuten Mexiko; eta **aztekar** erresumako hiriburuaren jatorrizko izena, Tenochtitlan, ezabatu zuten. ETC-literatura, saiakera

Mende batzuk geroago, Hernán Cortések Moctezuma errege **aztekarraren** eskutik hartu zuen txokolatea urrezko edalontzi batetan. ETC-prentsa

Aztekarren berrogeita hamabiko urte zikloaren arabera 2012an apokalipsiaren desordenuak pairatuko ditugu. ETC-prentsa

Baina Patricia Goodwin (Melody Anderson) emakume ederrak **aztekar** altxor bat bilatzeko kontratatzen dituenean beren betiko lanera itzultzea erabakiko dute. ETC-entziklopedia

Madarikazio hau **aztekar** pieza bat itzularazi eta odolezko zorra kitatuz bakarrik hautsi liteke. ETC-entziklopedia

2 *aztekar inperio* *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)*

Hernan Cortes Badajozen jaio zen 1485ean eta **Aztekar Inperioaren** konkistatzailea izan zen. ETC-prentsa

Horrela, konkistatzaileen talde txikiek mendean hartu izan ahal zituzten lurralde horiek (Hernan Cortesek **Aztekar inperioa** 1521ean, eta Francisco Pizarrok Inka Inperioa, 1532an), suzko armen nagusitasunari esker. ETC-entziklopedia

---

azterbide *iz* azterketan jarraitu beharreko bidea.

Azterbiderik errazena da, baina gauzatze indibidualean gelditzen da, izatez gizartekoa den ikurreraino iritxi gabe. Isabel Arrigain

Joan deneko hogei urtean, genetika molekularraren eskutiko teknika berrien eskutik, baditugu **azterbide** erabat berriak. Juan Garzia

Joera cartesiarra da Hausterrena, baina errotikoa, hain errotikoa non jarrera filosofiko horrek berak baitarama filosofia klaseetara ia ez agertzera eta, errealitateak aurrean jartzen dizkion **azterbideen** aurrean, beragandik gertukoenak, bereenak lehenestera. Iñaki Iñurrieta

Benetako hipotesi zientifikoa izan dadin datu garrantzitsu guztiak bereganatuz lortzen den **azterbidea** izan behar du, zientziak behaketen gainean ibili behar duenez. Jenaro Garate

Beharbada "ikerketa" hutsa adierazi beharrean "ikerketa bat" paratu beharko nukeen zehaztasunaren fabore, kontuan harturik auzi honetaz abiaturiko **azterbide** ezberdinak. Aingeru Epaltza

Nik orain proposatzen dizudan **azterbidean**, baztertu egingo ditugu tragedia honen barneko alderdiak, eta ingurukoetan jarriko dugu arreta. Koro Navarro

---

aztergai *izond/iz* aztertua izateko gai dena; azterketaren gaia.

Beste arazo batzuk **aztergai** dituela, bide horretatik jo nahiko luke nire saio honek ere. Koldo Zuazo

Azkeneko mende eta erdian, "sadismoa" psikiatra, moralista, psikoanalista, filosofo, apaiz eta pedagogoen **aztergaia** izan da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Joanesen lehen liburuak halaz, euskal adiztegi osoaren oinarri eta paradigma gisa kontsideratu Iditegiko aditza zuen **aztergai**. Itxaro Borda

Irudi-bidezko hizkuntza denean **aztergai**, irudiaren gramatika aipatu ohi da sarri, arrazoiz aipatu ere, irudiak bai-baitu bere gramatika. Joxerra Garzia

Hiru pare oinetako jarri zizkidan **aztergai**. Xabier Montoia

Zientzia abstrakzioez arduratzen da: indar, atomo eta geneez, esate baterako.Teknologiak, berriz, errealitate konkretuak ditu **aztergai**, hala nola makinak eta materialak. Irene Aldasoro

Bestean, Espainian nahiz latino-Amerikan azken berrogeita hamar urteotan espainolez idatzi duten emakumeen literatura zen **aztergai**. Ana Urkiza

Lehen planoa zinemaren ia hasieratik bertatik izan zen, gainera, zinemari buruzko gogoeta ororen **aztergai** teorikoetako bat. Josu Zabaleta

Hizkuntza bera izango da lehenengo **aztergaia**, hots, hitza. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aztergai duen (3); **aztergai dugun** (5); **aztergai dute** (3); **aztergai erredakzioa** (3); **aztergai izan** (12); **aztergai izango dituzte** (3); **aztergai nagusia** (3); **dira aztergai** (3); **ditu aztergai** (11); **du aztergai** (9); **egoera aztergai** (3); **ere aztergai** (4); **izan ditugu aztergai** (3); **izan dituzte aztergai** (3); **izan dute aztergai** (3); **izan zituen aztergai** (4); **izan zuen aztergai** (3); **izan zuten aztergai** (4); **izango da aztergai** (4); **izango dituzte aztergai** (5); **izango dute aztergai** (6)

---

aztergaitz *izond* aztertzen zaila dena, ia ezin aztertuzkoa. ik**ikergaitz**.

Bai **aztergaitzak** Jaunaren erabakiak eta sumaezinak haren bideak! Imanol Unzurrunzaga

Zeruaren goitasuna, lurraren sakontasuna eta erregeen bihotzak **aztergaitzak** dira. Elizen arteko biblia

---

aztergarri *izond* aztertzea merezi duena.

Haatik, enuntziatuen posibilitatearen osagaia den gardentasun hurbil hori ikusgai eta **aztergarria** egiten ahalegintzea da. Xabier Arregi

Historian lehen aldiz, bat-bateko bertsoen korpus **aztergarri** baten jabe gara 1960az geroztik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bai, ostera, gaiok landu zituen ohiko filosofian **aztergarri** bilaka zitezen. Askoren artean

azterka *adlag* aztarrika.

Gizon bien esku sukartsu eta jakintsuak gorputzean gora eta behera ibili dira, behin eta berriz, zirrika, **azterka**, bularrak eta sexua oretzen, erruki gabe. Juan Martin Elexpuru

Berriro ere bere kutxan **azterka** hasi zen Harry, diru-zorroa atera eta zilarrezko txanpon batzuk ipini zituen Stanen eskuan. Iñaki Mendiguren

Galdetu dit bizitoki tamalgarri honetan euskaldun batek, eta esanaz batera, burua makurtu zuen barreneraino, lurraren zabalean, **azterka**, zeozer atera nahi balu bezala. Jokin Urain

Bere eremutik atera, eta beste zakur baten barrutira hurbiltzen bada, ordea, beldurka, **azterka**, usainka. Gotzon Garate

azterkari *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* aztertzailea.

Magistratu hauei batzuek kontuonartzaileak deritzete, beste batzuek kontugileak, beste batzuek **azterkariak** eta beste batzuek ogasunzainak. ETC-zientzia, zuzenbidea

Morfinaren tratamenduaren **azterkari** nagusiak inpronta genomikoa duten geneak dira gure lanean. ETC-zientzia, zuzenbidea

Honek **azterkari** batzuk bultzatu zituen Askatasuna Batasunak uneren batean erabiltzeko "hautes-marka" zela esatera. ETC-entziklopedia

azterkaritza *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* azterketa.

-Nola esaten zioten orduan hari? Erri-Itsaskintza-Oro **Azterkaritza**? -azken hau ozenago esan nuen, galdetuz. ETC-literatura, saiakera

Azkeneko **azterkaritza** kontseiluan ikastolaren helburuetako bat euskal langilea trebatzea zela gogorarazi zen, eta gaur egun aplikagarria da, ezta? ETC-prentsa

azterkatu, azterka(tu), azterkatzen du *ad* aztertu.

Xehe-xehe **azterkatzen** zuen andre arrain saltzaileen moduko bitxiteria hura, bitxi bakoitzak alboan zeukan etiketako zenbaki handiak arretaz irakurriz. Karlos Zabala

Zezenek euren aldekoak aireratzen eta hankaperatzen zituzten eta adarrak zaldien saihets eta sabeletan sartzen eta lurra mehatxuzko bekokiz **azterkatzen**. Xabier Amuriza

"Izurria" eta "Arrotza"ko arabiarrak Camusek **azterkatutako** europar metafisika miragarri horretako izaki anonimoak baino ez dira, atzeko oihal legez erabiltzen direnak Iñigo Aranbarri

azterketa 1 *iz* aztertzea.

Horrela **azterketa** historikoari eskatzen diote arrazionaltasun-mota berri bat bila dezala eta ez, ordea, hasiera isila iker dezala, ez bukaerarik gabeko lehen aitzindarien bila aritzeko. Xabier Arregi

Sagu bikietan egin diren **azterketetan** ondokoa ikusi izan da: birusean gertatuko bi aldaketa nahiko direla infekzioaren garapena desberdina izateko; kasu batean arrakastatsuki borrokatua izateko, eta bestean gaixoak infekzio kronikoa izan eta heriotzaraino eramateko. Berria - Gaiak

Hume Streeteko kantoira gerturatzean, urrin-usain handi bat nabaritu zuen airean eta neska gaztearen itxuraren **azterketa** bizkor bat egiten ahalegindu zen. Irene Aldasoro

Azterketa teorikoak oso ondo daude. Fernando Morillo

Azterketa fisikoa ondo joan da eta bestelako xehetasunak agendan apuntatuta dauzkat. Javi Cillero

Mexikarrak billeteak hartu zizkion, eta esku biekin **azterketa** arin bat egin zien. Unai Iturriaga

Larritzen besterik ez zekien, ez zen gai gertaturikoaren **azterketa** zorrotzik egiteko, eta, horrenbestez, aholkuen eta adiskidetasun samurraren premia zuen beste edornok baino gehiago. Jose Morales

2 *iz* norbaiti, zerbaitetarako gauza den edo gai batez zenbat dakien ikusteko egiten zaion proba edo proba multzoa.

Hemengo ikasleen **azterketa**, tesina eta tesietan korronte horiek sartzen joan nintzen pixkanaka-pixkanaka. Berria - Kultura

Ikas urtea berriki bururatu da, batzuentzat **azterketa** edo etsaminekin. Herria

Igarkizunetan ari zen beti, **azterketak** egiten zizkidala iruditzen zitzaidan niri behintzat, eta sarritan agindu nion txakurraren salara. Koldo Izagirre

Bakarrik bizi garenok, emakumeekin tarteka baizik oheratzen ez garenok, **azterketa** batean parte hartzen dugun sentipena izan ohi dugu. Joxean Agirre

Bi hilabeteko epea zuen, **azterketak** prestatzeko. Joan Mari Irigoien

Bertsolariek ikasketen ahozko **azterketak** gogorarazten zizkidaten; gizon batzuk niri begira, swahiliz hizketan; beti mundu arrotzetan, ni. Joxean Sagaztizabal

Badakit hori ondo: haurtzaroa da lehendabizi, ikastetxea, ikaskideak, **azterketak** pairatu beharreko egunak. Josu Zabaleta

3 *azterketa mediko*

Orotara 25 eta 28 kilo artean galdu ditugu eta **azterketa medikoetan** agerian gelditu diren arazoak ditugu. Berria - Mundua

Belgradek, aldiz, Serbia eta Montenegroko adituek **azterketa medikoetan** parte hartzeko eskatu zuen, buruzagi ohiaren heriotzaren arrazoien inguruan inolako zalantzarik gera ez zedin. Berria - Harian

Sindikatuek, gainera, "luze eta zabal» eztabaidatu gura dute Aldi Baterako Lan Enpresen esku-hartzeaz eta urteroko **azterketa medikoez**. Berria - Ekonomia

Han egin zizkioten lehen **azterketa medikoak**, eta han eman zioten berri txarra: eskuineko eskuko eskafoidea hautsita zuen, eta lasterketa utzi behar zuen. Berria - Kirola

Del Rio presoak **azterketa mediko** "iraingarria» egin diotela salatu du. Berria - Euskal Herria

4 *azterketa sismiko* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Baina Anastasiadisek bertan behera utzi du bilera, Turkiako Gobernuak urriaren 20tik aurrera Zipreko uretan dagoen Salbuespen Ekonomikoko Eremura **azterketa sismikoak** egiteko ontzi bat bidaliko duela adierazi ondoren: "Probokazio bat da". ETC-prentsa

Besteen artean, **azterketa sismiko** osagarri bat egingo dute. ETC-prentsa

Azterketa sismikoa egin zuten ofiolita konplexu batean. Azterketaren ondorioz, abiadura ozeanikoa eta ofiolita egitura berdinak ziren, ofiolita konplexuaren jatorria lurrazal ozeanikoa dela adieraziz. ETC-entziklopedia

5 *azterketapean jarri*

Zeren eta Bossuetek aurkezturiko koadroa, **azterketapean jartzean**, ez baitzen ez kristautasunaren araberakoa, ez zentzuzkoa. Iñaki Mendiguren

Baina egonarriz jasan beharra daukat..., batez ere aspaldidanik Parisen eta gure garai honetan teologiako doktoreek beren agintariaren agindua baitzeukaten Santo Tomas eta anai Alberto (Handia) gizon txit argien liburuak **azterketapean jartzeko** susmagarriak eta erratuak omen zirelako. Joan Mari Lekuona

6 *begien azterketa* *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Ezin da **begien azterketa** egin, ezin baititu ireki. ETC-prentsa

Begien azterketa orokorra egiteaz gain, enpresendako segurtasun betaurrekoak egiten ditugu, eta baita eguzki eta graduatutako betaurrekoak ere. ETC-prentsa

7 *ibilgailuen azterketa tekniko*

Mendiolak Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburu Ana Agirre lagundu zuen atzo, Jundizen (Araba), **ibilgailuen azterketa teknikoaren** inguruko datuak emateko agerraldian. Berria - Euskal Herria

Grebara deitu dute **ibilgailuen azterketa teknikoak** egiten dituzten lantegietan. Berria - Ekonomia

Motorraren hotsari belarria zoli jarriz gero, ez genioke deus arrarorik erreparatuko; furgonetak, izan ere, berrikitan gainditu du IAT delakoa, hots, **ibilgailuen azterketa teknikoa**. Josetxo Azkona

8 *kasu azterketa* *(corpusean ez dago; ETCn **348** agerraldi)*

Kasu azterketa bereziki gizarte zientzietan erabiltzen den ikerketa-metodoa da, non pertsona, talde edo gertaera bat zehaztasunez aztertzen den, egoerari buruzko hipotesiak frogatu edo teoriak eratzeko. ETC-entziklopedia

Gaur panoptikoa psikologiaren ikuspegitik landuko da, eta bihar **kasu azterketak**. ETC-prentsa

Horregatik, lan honekin entzutezko arloko teoria eguneratua eskaini gura dute, egileen eredu pedagogikoarekin eta hainbat praktikaren **kasu-azterketekin** konbinatuta. ETC-prentsa

Horretarako, bide desberdinak erabili dira: inkesta (edo ikerketa kuantitatiboa), ikerketa kualitatiboa, eta bi **kasu azterketa**: enpresa munduko jendearekin egindakoa bata, eta euskal kulturako eta euskalgintzako lagunekin egindakoa bestea. ETC-prentsa

Banakako elkarrizketak, talde eztabaidak eta **kasu azterketak** (hitanoa erabili ez duten herritarrak hika egiten jarriko dituzte eta jarraipena egingo diete) egingo dituzte. ETC-prentsa

Kasu azterketa batzuk egingo ditugu. ETC-prentsa

Kasu-azterketaren bidez ikertutako komunikazio parte-hartzailearen proiektu baten ondorioak azalduko dira artikulu honetan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hurrengo adibideak **kasu-azterketako** lurrunezko energia-instalazioaren galdararen unitate bero-trukatzaileari dagokion analisi exergetikoa azaltzen du. ETC-zientzia, zuzenbidea

Metodo ez esperimentalen artean, berriz, **kasu-azterketa**, behaketa, elkarrizketa eta metodo klinikoa. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretan utz dezagun aditzaren isiltzearen **kasu-azterketa** labur hau. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horretan sakontzeko **kasu-azterketa** batean oinarrituko gara: Gaztea (EITB) euskal gazteei zuzendutako komunikabide-markaren kasuan, hain zuzen. ETC-zientzia, zuzenbidea

Afasiadunen **kasu-azterketa** medikoek aukera paregabea ematen digute musikaren eta hizkuntzaren arteko erlazio neurala nolakoa den aztertzeko. ETC-literatura, saiakera

Baina estatistika guztiak, **kasu-azterketa** anonimoak eta zuzeneko lekukotzak han zeuden arren, Kayk paziente bakar bat zuen klinikari buruzko bere jarreraren oinarri: Terri Weedon. ETC-literatura, saiakera

9 *kontzientzi azterketa*

Lehenengo aldia balu bezalaxe, eta **kontzientzi azterketa** luze eta larria egin zuen aitortzailearengana joan aurretik; aulkiak betetzen zituzten mutiko, neska eta atso zahar guztiei utzi zien txanda pasatzen. Josu Zabaleta

Kontzientzi azterketa sakona neure arbasoen aldarean. Xabier Mendiguren Elizegi

10 *kontzientzia azterketa*

Nik ez dut damutu baten **kontzientzia azterketa** egin nahi izan, baina azaldu nahi izan dut gauzak nola izan ziren, eta gero nola aldatu diren. Berria - Kultura

11 *landa-azterketa* *(corpusean ez dago; ETCn **25** agerraldi)*

Zer esan nahi dugu, giza naturalista bat, **landa-azterketa** luze baten ondoren, % 90 ziur dagoela, edo animaliak daudela % 90 ziur? ETC-literatura, saiakera

Gorilak lainopean liburuak mendiko gorilekin haien habitat naturalean eman ditudan hamahiru urteetan gertatuak kontatzen ditu, eta horrez gainera **landa-azterketako** hamabost urteetako datuak ematen ditu. ETC-literatura, saiakera

McDougall Frantziako gutxiengoen egoerari buruzko **landa azterketa** egiten ari da, eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak nahi du azterketan jaso dezala euskarak Ipar Euskal Herrian duen egoera. ETC-prentsa

Zergatik ez dute **landa-azterketarik** egiten jakiteko euskaldunok zer ikusi nahi dugun? ETC-prentsa

Dena den, beste metodo psikologikoak garatuz joan ahala, **landa-azterketak**, zuzeneko behaketak eta antzeko prozedurak ere erabiltzen dituzte. ETC-zientzia, zuzenbidea

Landa-azterketa funtzionalista horiek tradizio horri jarraitu diote, Sorokinenak baino soziologia-kontzeptu berriagoak erabiliz, baina landa-komunitateen azterketa deskribatzaileak eginez bereziki. ETC-zientzia, zuzenbidea

Hain zuzen ere, **landa-azterketa** bat burutu da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko arduradunekin. ETC-zientzia, zuzenbidea

Zientzialari, naturalista eta boluntario taldeek **landa-azterketa** intentsiboa egiten dute etengabeko denbora-tarte batean (adibidez, normalean 24 orduz). ETC-entziklopedia

1953 eta 1956 artean oso **landa-azterketa** sakona egin zen eta horri esker geruza arkeologiko nagusiak eta eraikinaren itxura arkitektonikoa berregin ziren. ETC-entziklopedia

12 *osasun azterketa*

Bestalde, sei hilabetean behin ginekologoarengana joan beharko dute haurrek, hark **osasun azterketa** egin diezaien. Berria - Gaiak

Gaixoak agertu eta, **osasun azterketa** egiten zien bitartean, beren bizitza kontatzen zioten. Fernando Rey

Osasun-azterketak egiten ari ziren. Jon Muñoz

Guztira, 36.280 miaketa eta 2.221 **osasun azterketa** egin zituzten. Berria - Euskal Herria

Osasun azterketa arrunta edo kardiologia artak hartzerakoan aise gainditzen da 90 euroko kopurua. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aberastasunen azterketa (7); **azken azterketa** (18)

azterketa arkeologikoak (6); **azterketa asko** (6); **azterketa aurkeztu** (7); **azterketa baino** (10); **azterketa bat egin** (18); **azterketa bat egingo** (10); **azterketa bat egiten** (12); **azterketa batean** (21); **azterketa batek** (14); **azterketa baten arabera** (13); **azterketa batzuk** (10); **azterketa da** (16); **azterketa edo** (10); **azterketa egin behar** (13); **azterketa egin du** (14); **azterketa egin dute** (8); **azterketa egin duten** (7); **azterketa egin ostean** (7); **azterketa egin zuen** (10); **azterketa egingo diote** (7); **azterketa egitea** (19); **azterketa egitean** (8); **azterketa egiten ari** (10); **azterketa egiten duzu** (6); **azterketa egitera** (13); **azterketa egiterakoan** (8); **azterketa ere** (9); **azterketa ez** (13); **azterketa gainditu** (25); **azterketa gainditzeko** (7); **azterketa genetikoa** (8); **azterketa ginekologikoa** (7); **azterketa ginekologikoak** (8); **azterketa guztiak** (17); **azterketa hau** (18); **azterketa historiko** (11); **azterketa historikoa** (7); **azterketa historikoaren** (8); **azterketa honen** (11); **azterketa hori** (28); **azterketa horiek** (26); **azterketa horrek** (8); **azterketa horren** (20); **azterketa horretan** (12); **azterketa hura** (6); **azterketa izan** (6); **azterketa lan** (6); **azterketa medikoa** (10); **azterketa medikoak** (7); **azterketa medikua** (11); **azterketa medikuak** (6); **azterketa orokorra** (13); **azterketa oso** (6); **azterketa sakon bat** (10); **azterketa sakona egin** (9); **azterketa sakonagoa** (14); **azterketa sakonak** (9); **azterketa talde** (6); **azterketa teknikoa** (8); **azterketa ugari egin** (6); **azterketa zehatza** (10); **azterketa zehatzak** (6); **azterketa zientifiko** (6); **azterketa zorrotza** (7)

baina azterketa (17); **baten azterketa** (12); **bere azterketa** (7); **beste azterketa** (16); **bi azterketa** (10); **bigarren azterketa** (6); **buruzko azterketa bat** (8); **buruzko azterketa egiteko** (6); **da azterketa** (19); **den azterketa** (11); **dira azterketa** (8); **du azterketa** (18); **duen azterketa** (13); **dute azterketa** (15); **duten azterketa** (6); **edo azterketa** (12); **egin beharreko azterketa** (7); **egin diren azterketa** (6); **egin zuen azterketa** (7); **egin zuten azterketa** (6); **egindako azterketa baten** (11); **eginiko azterketa** (9); **egoeraren azterketa egin** (6); **ere azterketa** (12); **gaineko azterketa** (17); **hainbat azterketa** (10); **historiaren azterketa** (8); **hizkuntzaren azterketa** (10); **horren azterketa** (7); **inguruan azterketa** (6); **inguruko azterketa** (29); **lehen azterketa** (29); **mailako azterketa** (6); **mediku azterketa** (25); **merkatu azterketa** (7); **osasun azterketa** (11); **politikoaren azterketa** (9); **selektibitate azterketa** (6); **zen azterketa** (11); **zer azterketa egiten** (9); **zientziaren azterketa** (12)

azterketak bi (6); **azterketak egingo** (8); **azterketak egiteko** (19); **azterketak egiten ari** (7); **azterketak egitera** (6); **azterketak erakutsi** (6); **azterketak ere** (7); **azterketak ez** (12); **buruzko azterketak** (10); **du azterketak** (7); **egindako azterketak** (14); **hizkuntzaren azterketak** (6); **lehen azterketak** (6); **mediku azterketak** (15); **osasun azterketak** (8); **zuen azterketak** (6)

izaki arriskutsuen azterketarako (8)

azterketaren bidez (6); **azterketaren emaitza** (10); **azterketaren emaitzak** (20); **azterketaren ondorio** (8); **azterketaren ostean** (6); **duen azterketaren** (6); **egindako azterketaren arabera** (7); **lehen azterketaren** (6)

azterketek erakutsi (6); **egindako azterketek** (8)

azterketen emaitzak (11); **egindako azterketen arabera** (8)

egindako azterketetan (6)

azterketari *(corpusean ez dago; ETCn **31** agerraldi) iz* azterketa bat egiten duen pertsona.

Banaka-banaka, galderak egin dizkiote **azterketariari**. ETC-literatura, saiakera

Ezintasun hau are kezkagarriagoa zen aztertzaile aritu behar izaten nuenean: programako galderak zoriz atera, eta ez nekien ezta **azterketariek** zer erantzun behar zidaten ere. ETC-literatura, saiakera

Ez haiz azaldu etsamina-aretoko irteerara **azterketarien** zorroztasuna frogatzeko jarritako galderen berri jakitera. ETC-literatura, saiakera

Baina lehenbiziko **azterketariak** atera zirenean Rocci hiztegia besapean zutela, Ninori ezpainak eskaintzen ikusia nuen neska eder eta txukuna agertu zen. ETC-literatura, saiakera

Erakunde horien arabera, **azterketarien** gaitasun komunikatiboaren maila neurtzeko bi printzipio nagusi bermatu behar dira: ebaluazio prozesuen kalitatea eta zuzentasuna. ETC-prentsa

Alde batetik, gu bezala **azterketariak** izan zinetelako, eta, bestetik, pedagogo zareten aldetik, kontzientzia izatea suposatzen duelako. ETC-prentsa

"EGA suspenditzeak ez du adierazten **azterketariak** euskararik ez dakienik, baizik eta C1 mailako parametroetara ez dela heldu". ETC-prentsa

Hizkuntz Eskola Ofizialetan azterketa egin ahal izateko bertako ikasle ofiziala izan behar du **azterketariak**, autonomia erkidegoan C1 ez baita libreentzat eskaintzen (Nafarroan bai, ostera: bitxia). ETC-prentsa

Oraindik ere, **azterketaria** bilatzen ari dira. ETC-prentsa

---

azterkizun *iz* azterketa, azterketa-gaia.

Lehenengo kontzeptua, gradualtasunarena, garrantzitsua da oso, zeren plastikaren teoriak duen zailtasun handienetako bat erraztea baitu helburua: plastikaren **azterkizuna** ez baita, izan ere, elementu diskretuz, etenez eratzen diren sistemak, continuum bat baizik, progresiboki, gradualki aldatuz doazen elementuak baizik. Josu Zabaleta

---

azterlan *iz* azterketa, azterketa-lana.

Beraz, irakurleak bere esku du orain **azterlan** osoaren laburpen uniforme bat, buru argi batek egina, edukiez ongi jabetzeaz gain, egilearen ikuspegian eta helburuan ere ongi sartu dena. Iñaki Mendiguren

70eko hamarkadan heldu zion euskal idazleen inguruko **azterlanak** egiteari eta kaleratzeari. Berria - Kultura

Azterlan horiek berresten bide zuten badirela zinez zenbait ezaguera-ahalmen edo adimen bereizi eta autonomo, eta bakoitzak bere algoritmo eta arauak dituela: Gardnerrek bere hipotesian azaltzen zuenaren antzera, hain zuzen ere. Xabier Olarra

Aldi berean, zentro industrializatua eta periferia azpigaratua aurrez aurre jartzen zituzten **azterlanak** guztiz baliogabetuak geratu ziren Ekialde Urrunaren industria-garapena zela-eta. Koro Navarro

Seitik zortzi ordura bitarte Potzolori sinetsi behar banion, baina halakorik ez idazteko erregutu zidan, forentsearen **azterlanak** gezurtatuko ez ote zuen. Aingeru Epaltza

Arrazoi hori dela medio, bere nobelak asko dokumentatutako eta saiakera bidean dauden **azterlanak** dira. Ana Urkiza

Aminei buruzko laburpenezko **azterlan** bat ari zen egiten, eta bere indar guztiaz lan egiten zuen, kezkak ahaztu eta ideiak argi adierazteko. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azterlan bat egin** (3); **azterlan honen aurreko** (4); **azterlan honen egileak** (3); **azterlan honen lehenagoko** (12); **azterlan honetan lehenago** (11); **azterlan honetan lehenagoko** (5); **azterlan honetan zehar** (3); **buruzko azterlan bat** (3); **dugu azterlan honetan** (4)
> **azterlanaren zati** (3)

---

azterlari *iz* aztertzailea.

Etikaren **azterlariek** etika gidari nagusien artean hartzen dute Kant, arrazoi handiz. Jenaro Garate

Bankuak taloia aztertzeko lehenago aipatu ditugun Bilboko bi emakume **azterlariei** eman zien. Gotzon Garate

---

azterraldi *iz* azterketa.

Laugarren **azterraldia**. Oskar Arana

Zigarro bat piztu eta aitzineko egunean Zabalguneko merkatu inguruan egindako nire azken **azterraldiak** berritu nizkion, Josefinarekiko solasaldi laburrak emandakoa gehituta. Aingeru Epaltza

---

azterrarazi, azterraraz, azterrarazten du *ad* aztertzera behartu.

Orain urte asko, ama hil ondoren... Zuri eman aurretik zer balio zuen jakiteko **azterrarazi** zuen. Ander Irizar

Onartzeko modukoa iruditzen bazaio, arretaz azter beza edota **azterrarazi** fede katolikoari eta Elizako sakramentuei buruz. Askoren artean

Flauta-jotzailea, hortxe, bere laukiaz inguratuta daukaan hori, **azterrarazi** egingo huen Vermeerena dela ziur jakiteko, ezta? Jon Muñoz

---

azterren ik **aztarren**.

---

aztertu, azter, aztertzen du *ad* zerbaiti oharmenez begiratu edo zerbait arretaz gogoan erabili, bereziki bere egoeraz, ezaugarriez edo bertatik etor daitezkeen ondorioez jabetzeko. ik **ikertu**.

Nahiz eta hizkuntzarekiko interes filosofikoa aspaldikoa den, ia beti bestelako arazo filosofikoak argitzeko **aztertu** da hizkuntza. Askoren artean

Ikuspegi hau **aztertu** eta baztertu egiten da. Iñaki Mendiguren

Horrenbestez, AEBetako datuak askoz hobeak dira enplegu sorkuntzari buruz, baina, sakonean **aztertzen** badira, kualitatiboki askoz txarragoak direla ikusiko da. Iñaki Heras

Aztertu zeuen barrua ea sinesmenean zaudeten, **aztertu** serioski. Elizen arteko biblia

Baya Ederrean diren arrain mota guzien **aztertzen** ari dira. Aurelia Arkotxa

Nola egin nuen totelka bere mesfidantzaren aurrean piezaren merezimenduak **aztertzen** ari zela, zer salneurri jar niezaiokeen zalantza egiten nuenean. Ramon Etxezarreta

Are gehiago mutiko gazte hura egiten nengoena zehatz-mehatz **aztertzen** ari zela jakinik. Jasone Osoro

Eta mementoan zerbitzatzeko manera hoberena baitzen, euskaldun abertzaleen kontra diren errabiatu horietarik zen eta ez zuen bakerik, bereziki Nafartarristen jokoa ongi zilaturik eta **azterturik**. Michel Oronoz

Argindarra heriotzarako bide bezala hautatu aurretik -energia gazte eta glamurosa zen garai hartan, ez dezagun ahantz- gillotina eta morfinaren aukerak **aztertu** zituzten. Harkaitz Cano

Sasi arteak ongi **aztertuz** egin genuen gora, aztarrenik uzten ote zuten beren ihesaldian, baina ezer ez, harik eta tontor baten barrenean, garadi baten mugan, garo zapalduaren arrastoa aurkitu genuen arte. Inazio Mujika Iraola

-Aztertu ezak zenbat zaldun etorri diren, eta zein aldetan dagoen indarrik handiena, ala Wincesterrekoen aldean, ala aurkarienean. Juan Kruz Igerabide

Hark soraio **aztertu** zuen, eta pare bat gutunazal zabaldu zituen, igorleak nortzu ziren ikusita interesa piztu baitzioten; kaligrafia ezezaguna eta itxura beteegia zuen gutun bat ikusi eta, hasiera batean, bazter utzi zuen. Eduardo Matauko

Oraingoan ere bidearen goiti-beheitiak **aztertu** zituen, eta Errekalderantz. Koldo Izagirre

Mirenen baserri alderago, jaurtiketa eremutik kanpo, gudu-lekuko egoera **aztertu** nuen, Napoleonek Austerlitzen bezala. Joxean Sagaztizabal

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

arabera aztertu (9); **arazoak aztertu** (18); **arretaz aztertu** (34); **aukera aztertu** (33); **aukerak aztertu** (14); **auzia aztertu** (9)

aztertu ahal izan (9); **aztertu ahal izango** (15); **aztertu ahal izateko** (19); **aztertu arte** (12); **aztertu aurretik** (12); **aztertu behar da** (62); **aztertu behar dela** (21); **aztertu behar dira** (39); **aztertu behar direla** (14); **aztertu behar ditu** (11); **aztertu behar ditugu** (13); **aztertu behar du** (12); **aztertu behar dugu** (20); **aztertu behar dute** (13); **aztertu beharko da** (20); **aztertu beharko ditu** (9); **aztertu beharko du** (24); **aztertu beharko dugu** (10); **aztertu beharko dute** (9); **aztertu beharko lirateke** (9); **aztertu beharko litzateke** (11); **aztertu beharra dago** (10); **aztertu beharreko** (29); **aztertu beharrekoa** (9); **aztertu da** (12); **aztertu dira** (16); **aztertu ditu** (114); **aztertu ditugu** (31); **aztertu ditugun** (17); **aztertu ditut** (15); **aztertu dituzte** (114); **aztertu du** (166); **aztertu duen** (15); **aztertu dugu** (32); **aztertu dugun** (13); **aztertu dut** (15); **aztertu dute** (96); **aztertu duten** (17); **aztertu duzu** (10); **aztertu egin beharko** (16); **aztertu egingo** (14); **aztertu egiten** (9); **aztertu ere egin** (11); **aztertu eta gero** (27); **aztertu ez** (10); **aztertu gabe** (34); **aztertu genituen** (13); **aztertu genuen** (18); **aztertu izan** (24); **aztertu nahi du** (15); **aztertu nahi dute** (10); **aztertu nahi izan** (19); **aztertu ninduen** (11); **aztertu nituen** (23); **aztertu nuen** (41); **aztertu ondoren** (119); **aztertu ostean** (69); **aztertu zen** (9); **aztertu ziren** (9); **aztertu zituen** (130); **aztertu zituzten** (88); **aztertu zuen atzo** (10); **aztertu zuen taberna** (16); **aztertu zuten** (103)

banan banan aztertu (21); **batean aztertu** (15); **batera aztertu** (9); **batez aztertu zuen** (16); **batzuk aztertu** (11); **begirada batez aztertu** (16); **behar bezala aztertu** (10); **berriro aztertu** (14); **berriz aztertu** (25); **bilakaera aztertu** (11); **da aztertu** (18); **den aztertu** (29); **dena aztertu** (12); **diren aztertu** (23); **duen aztertu** (14); **duen eragina aztertu** (14); **duten aztertu** (9); **edukia aztertu** (9); **emaitzak aztertu** (10); **ere aztertu** (99); **gaia aztertu** (27); **goitik behera aztertu** (14); **guztia aztertu** (12); **guztiak aztertu** (39); **harremanak aztertu** (9); **helegitea aztertu** (9); **hori aztertu** (24); **horiek aztertu** (15); **hura aztertu** (13); **ikuspegitik aztertu** (15); **kasuak aztertu** (16); **kontu handiz aztertu** (9); **lana aztertu** (11); **lanak aztertu** (9); **nola aztertu** (9); **ondo aztertu** (31); **ondorioak aztertu** (18); **ongi aztertu** (29); **politikoa aztertu** (11); **sakon aztertu** (37); **sakonki aztertu** (12); **txostena aztertu** (9); **zehatz mehatz aztertu** (19); **zer aztertu** (10); **zorrotz aztertu** (11); **zuen aztertu** (10)

azter daiteke (17); **azter daitezke** (16); **azter dezagun** (42); **azter ditzagun** (12); **azter ezazu** (11)

aztertua izan (19)

aukera aztertuko (15); **aztertuko da** (24); **aztertuko dira** (25); **aztertuko diren** (9); **aztertuko ditu** (54); **aztertuko dituela** (9); **aztertuko ditugu** (35); **aztertuko dituzte** (116); **aztertuko dituztela** (15); **aztertuko duela esan** (9); **aztertuko duen** (21); **aztertuko dugu** (50); **aztertuko dutela** (31); **aztertuko zuela** (10); **banan banan aztertuko** (10); **berriro aztertuko** (9); **berriz aztertuko** (12); **bihar aztertuko** (10); **den aztertuko dute** (9); **diren aztertuko** (10); **egoera aztertuko dute** (9); **eragina aztertuko** (9); **ere aztertuko dute** (10); **ez aztertuko** (11); **gaur aztertuko du** (9); **proposamena aztertuko** (11)

ondo aztertuta (9)

aztertuz gero (58)

aukera aztertzeko (11); **aukerak aztertzeko** (10); **auzia aztertzeko** (23); **aztertzeko asmoa** (10); **aztertzeko asmoz** (23); **aztertzeko aukera** (31); **aztertzeko bilera** (18); **aztertzeko denbora** (12); **aztertzeko eskatu du** (13); **aztertzeko ikerketa** (13); **aztertzeko lan** (11); **aztertzeko orduan** (10); **aztertzeko prest** (18); **batzuk aztertzeko** (11); **berriro aztertzeko** (11); **berriz aztertzeko** (33); **den aztertzeko** (24); **diren aztertzeko** (18); **edo ez aztertzeko** (10); **egoera politikoa aztertzeko** (9); **eragina aztertzeko** (16); **gaia aztertzeko** (42); **guztiak aztertzeko** (11); **hizkuntza politika aztertzeko** (9); **hori aztertzeko** (21); **horiek aztertzeko** (19); **nondik norakoak aztertzeko** (11); **ondorioak aztertzeko** (14); **proposamena aztertzeko** (13); **sakon aztertzeko** (10)

arretaz aztertzen (18); **aukera aztertzen ari** (48); **aukerak aztertzen** (13); **aztertzen ari da** (220); **aztertzen ari dela** (44); **aztertzen ari den** (20); **aztertzen ari dira** (205); **aztertzen ari direla** (38); **aztertzen ari diren** (12); **aztertzen ari gara** (36); **aztertzen ari garen** (13); **aztertzen ari zela** (15); **aztertzen ari zen** (22); **aztertzen ari zirela** (18); **aztertzen ari ziren** (10); **aztertzen aritu** (27); **aztertzen bada** (10); **aztertzen baditugu** (10); **aztertzen badugu** (18); **aztertzen da** (41); **aztertzen dira** (44); **aztertzen diren** (13); **aztertzen direnean** (9); **aztertzen ditu** (92); **aztertzen dituen** (44); **aztertzen dituzte** (20); **aztertzen du** (93); **aztertzen duen** (51); **aztertzen dugu** (11); **aztertzen dute** (18); **aztertzen duten** (13); **aztertzen ez** (15); **aztertzen hasi da** (9); **aztertzen hasi zen** (30); **aztertzen hasi ziren** (9); **aztertzen hasiko** (10); **aztertzen hasita** (10); **aztertzen saiatu** (15); **aztertzen ziren** (10); **aztertzen zituen** (36); **aztertzen zuen** (27); **aztertzen zuten** (9); **batzuk aztertzen** (11); **berriak aztertzen** (10); **bezala aztertzen** (17); **da aztertzen** (15); **daitekeen aztertzen** (10); **den aztertzen** (14); **dira aztertzen** (13); **diren aztertzen** (15); **duen aztertzen** (9); **edo ez aztertzen** (18); **egin aztertzen** (9); **egitea aztertzen ari** (17); **egoera aztertzen** (21); **eragina aztertzen** (13); **ere aztertzen ari** (14); **ez aztertzen ari** (16); **gaia aztertzen** (12); **gaiak aztertzen** (9); **guztiak aztertzen** (19); **hau aztertzen** (10); **helegitea aztertzen** (9); **hori aztertzen** (14); **hura aztertzen** (12); **kasua aztertzen** (9); **proposamena aztertzen** (9); **sakon aztertzen** (10); **zehatz mehatz aztertzen** (10); **zen aztertzen** (10)

---

aztertzaile 1 *iz* zerbait aztertzen duen pertsona, bereziki azterlanean aritzen dena; aztertzeko egitekoa duena. ik **ikertzaile**; **azterlari**.

Historiaren **aztertzaile** amorratua zara. Berria - Euskal Herria

Eta kristau-aroko hamabosgarren mendean Eskandinaviarekin gertatu zena, Mendebaldekoa ez zen baina bizkor mendebaldar bihurtzen ari zen mundu osoarekin gertatzen zen **aztertzaile** honen garaian. Iñaki Mendiguren

Jakintsuak, izan ere, egiaren **aztertzaile** izan behar du, ez hitzen egile. Imanol Unzurrunzaga

Roland de Chaudenay kazetari eta **aztertzaileak** dioen bezala, 1780an jaiotako idazle hau Supercherie littéraire guzti-guztien ikerketa eta erabileran espezializatu zen. Bernardo Atxaga

Aztertzaile pitagorikoaren plantak egin zituen Ruche jaunak, nahaspilan mintzatuz. Jon Muñoz

Askoz ere interesgarriagoa iruditzen zait, ordea, nire sadismo psikologikoa, eta batez ere harrapakinak hautatzeko dudan begi zorrotza, kasu ederra naiz **aztertzaileentzat**. Karlos Zabala

Bera **aztertzailea** zen, beste pertsonen portaeren ikertzaile, besterik gabe. Joxemari Iturralde

Handia iritzi dio gelari, hain huts, mahai hura erdi-erdian eta bi **aztertzaileen** aurpegi zorrotzak mahaiaz bestaldean. Iñigo Aranbarri

2 (izenondo gisa)

Adoregabetu egiten zuen pentsatzeak ezen han egongo zitzaiola, afalmahaian, bera hizketan ari zen bitartean, begi kritiko **aztertzaile** haiekin behetik gora begira. Irene Aldasoro

Kontua da horrelaxe daukadala gogoan disko baten azalean, piano aurrean zeharka eserita, baina burua kamerari itzulia, besoak gurutzatuta eta soa **aztertzaile**. Ramon Saizarbitoria

Begi hutsak, begi **aztertzaileak**, kontu-eskatzaileak: hori, hori, zer egiten du ume honek hemen! Anjel Lertxundi

3 ***aztertzaile sintaktiko*** *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)*

Besteak beste, ordenagailu bidezko corpus linguistikoak erabiltzen dituzte arlo horretan, bai eta zuzentzaile ortografikoak prestatzen, lengoaia naturaleko **aztertzaile sintaktikoak** diseinatzen, itzulpengintza automatikoa bideratzen... ETC-zientzia, zuzenbidea

Hala nola, kategoria gramatikalen etiketatzea, **aztertzaile sintaktikoak**, eta bestelako azterketa linguistikoak. ETC-entziklopedia

---

aztertze *iz* zerbaiti oharmenez begiratzea edo zerbait arretaz gogoan erabiltzea, bereziki bere egoeraz, ezaugarriez edo bertatik etor daitezkeen ondorioez jabetzeko. ik **azterketa**.

Horren ikerketa-esparrua zientziaren eta teknologiaren praktikatik eratortzen diren ziurgabetasunak eta arriskuak **aztertzea** da, betiere zientziaren eta teknologiaren ikasketa sozialetatik hurbil aurkitzen den ikuspegi filosofikotik abiatuta. Askoren artean

Kontua ez da **aztertzea** aurkikuntza hori eragotzi duten trabak, formulazio hori atxiki dutenak, enuntziazio-era jakin bat errefusatu dutenak, ezta adierazpen inkontziente jakin bat, edo bilakatzen den arrazionaltasun jakin bat **aztertzea** ere; kontua da, haatik, presentzien sistema mugatu bat definitzea. Xabier Arregi

Eskarmentu luze hori aski izan zaio akademia honi ustezko ebazpen horiek guztiak **aztertzeak** zientzietarako zer balio gutxi lukeen konturatzeko. Jon Muñoz

Luzeago jo dio begia **aztertzeak**. Oskar Arana

Hori **aztertzea** zen niri zegokidan eginkizuna. Gotzon Garate

Beharrezkoa zen berriz hitzak hautatzea eta **aztertzea**, faltsuak ala benetakoak ote ziren sentitzeko, guregan egiazko errorik ba ote zuten sentitzeko, edo huts-hutsik ilusio orokorraren erro laburrak. Fernando Rey

Eta hori **aztertzea** da gure lana, hedabideekin aurrezaurre, errespetuan egoteko. Pako Aristi

Euskara **aztertzea** eta euskarari buruzko ikerketa linguistikoen hastapen zientifikoei ekitea xede bazuen ere, humanista handia zen Humboldt. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aztertze aldera (3)

aztertzea da (41); **aztertzea erabaki** (16); **aztertzea izan** (13); **aztertzea izango da** (11); **aztertzea nahi** (9); **aztertzea zen** (10); **berriz aztertzea** (13); **da aztertzea** (11); **egoera aztertzea** (13); **ez aztertzea** (11)

aztertzeari ekin zion (12)

aztertzeaz gain (12)

---

azti 1 *iz* ezkutua dena ezagutzeko edo etorkizuna asmatzeko, ohiz kanpoko ahalmenak omen dituen pertsona.

Hark animatuta abiatua zen Faustino gaztea Elgetarengana, soinu txikiaren zoko-moko eta zapalkera guztiak zekizkien **aztiarengana**. Koldo Izagirre

Gutxi nekien Angeloren ibilbidea guztiz bihurrituko zuen pasadizo hartaz, eta nekien guztia langartsua zen, baina ez zen **aztia** izan behar pentsatzeko gertakari hura mugarria izango zela Angelorentzat. Anjel Lertxundi

Eta iragarpen bat ere esango diat, eta bete egingo dela uste diat, ez **azti** naizelako edo hegaztien bidez iragartzen dakidalako, hilezkorrek bular barruan hitz horiek jarri dizkidatelako baizik. Juan Kruz Igerabide

Halere, bi neskek dena balekite bezala zen, informazioa auskalo nork emanda, edo bestela **azti** igarle txikiak ziren. Fernando Rey

2 *iz* izadiaren legeen kontrako gauza miragarriak egiten bide dituen edo ahalmen ezkutuak bide dituen pertsona. ik**sorgin**.

Adin txikiko **aztiei** ez zitzaien uzten magia erabiltzen eskolatik kanpo. Iñaki Mendiguren

Nahiko nukeen arren, ez naiz **aztia**, gasnak ez nau pertzepzioaren ateen haraindira eroaten, telepatia zein sinpatiaren ordez laketago zait urdepatia, are gutxiago ez naiz X3C izarbeletik etorri eta idazlez itxuraldatu den V kuskandela ikaragarria. Itxaro Borda

Errukituta, **azti** handien bertuteak eta boterea eman nahi izan zizkion amak, eta horretarako jakinduriaren pazian sartu zuen eta Bach epotxari agindu hura zaintzeko eta aldian-aldian eragiteko. Pako Aristi

Berehala gerturatu, eta indarrez hasi zen tiraka harri kozkor batean iltzatuta baina euskarria begi-bistan zuen **aztiaren** ezpata magiko hartatik. Josetxo Azkona

3 (izenondo gisa) liluragarria, guztiz erakargarria.

Alabaina, galde dezake berriro ere gure irakurle **aztiak**, zergatik ez zuen gertakari haiei buruz fitsik ere esan, zergatik ez zuen bere idazkietan aipamenik ttikiena ere egin? Patxi Zubizarreta

Gisa honetantxe akabatu zituen bada bi anaia **azti** haiek. Patxi Zubizarreta

4 (adizlagun gisa) erne.

On Camillo, **azti** ibili: zazpi aldiz pentsa ezazu, "Peppone astoa" idatzi baino lehen. Koldo Biguri

Azti eta zuhur ibiliz gero, horren halako bi irabaz dezake. Patxi Zubizarreta

Bide txarra daukazu, **azti** ibili! Jon Maia

Azti ibili zen Jozefen ama: udaletxera jaitsi zen goizean goiz, soldaduak bere semearen bila joan zitezen baino lehen etxetik falta zela eta non zegoen ez zekiela gaztigatzera. Harkaitz Cano

5 ***azti egon***

150.000 boluntario inguru izango direla uste dute, zuzenbide ikasleak eta bestelakoak, eta begiak zorrotz eta belarriak **azti egongo** dira bozketa egunean. Berria - Mundua

6 ***azti ibili***

Azti ibili beharko dugu. Javi Cillero

Azti dabilenik, bada. Iñigo Aranbarri

Ermuarrak ondo prestatzen ditu klasikoak, **azti ibiltzen** da proba guztietan, lasterketa irakurtzen gutxik bezala daki, eta ihesaldi erabakiorrean han izango da jo eta su lanean. Berria - Kirola

On Camillo, **azti ibili**: zazpi aldiz pentsa ezazu, "Peppone astoa" idatzi baino lehen. Koldo Biguri

Bide txarra daukazu, **azti ibili**! Jon Maia

Egoera politiko berriaren harian, PPko buruzagiak Zapaterori **azti ibiltzeko** eta Estatua ezertan konprometitu dezakeen pausorik ez emateko eskatu ziola agertu zuen. Berria - Euskal Herria

Azti ibili zen Jozefen ama: udaletxera jaitsi zen goizean goiz, soldaduak bere semearen bila joan zitezen baino lehen etxetik falta zela eta non zegoen ez zekiela gaztigatzera. Harkaitz Cano

---

aztiatu, aztiatu, aztiatzen *(corpusean ez dago; ETCn **5** agerraldi)* du *ad* azti lanetan jardun.

Baina, hantxe ere, gogoeta handi korapilatsuak **aztiatzen** ziren buruan; potogilea eta nekazaria, goiz-goiz jaikiak haiek ere, apurtxo batean geratu ziren hesi sarreraren ondoan, amesbera... ETC-literatura, saiakera

Agure edale zaharrak, bere seiehungarren urtea bete zuen hilabete hartan, eta adinarengatik naski, gertatuko ziren borrokak **aztiatzeko** gai ez zen izan, are gutiago ziminoek modu horretan larru jotzearen arrazoina ulertzeko. ETC-literatura, saiakera

---

aztiatzaile *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* aztiatzen duena.

Ez Spenglerren holismo biologikoak, ez haren intuiziozko ulermenak, Talde Espirituak edo Garaiaren Espirituak, eta haren Erromantizismoak ere ez dute salbatzen **aztiatzaile** hori guztiz ikuspegi pesimista bat izatetik. ETC-literatura, saiakera

---

aztiatze *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* azti lanetan jardutea.

Bera da gizaki hautsi gabea berrezartzearen predikari guztien artean etorri handienekoa, zibilizazioaren hazkuntzaz, Humanitat, ur-**aztiatze** espiritualezko egitate batez, zeinen bidez egiazko tradizio humanistaren korronte lurperatua aurkitu eta jarraitu baitateke. ETC-literatura, saiakera

---

aztiele *iz* araoa, konjurua.

Ezpatak eta erredolak ekarriko dituzte, basurdearen itxurako buruoskolak, uzta ugalarazteko **aztieleak**, kosmogonia lausoak, hunoen eta godoen alegiak. Juan Garzia

---

aztigo *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)* *iz* azti lana.

-Polizia ofizioan ez gara **aztigoari** emanak. ETC-literatura, saiakera

aztikeria *iz* azti lanezko asmaketa edo egite gaitzesgarria.

-Garbi dago **aztikeria** batek akabatu duela. Iñaki Mendiguren

"Era horretako **aztikeriak** ikusia naiz dagoeneko, neure herrian", esan zuen. Joxan Elosegi

Izuturik zeuzkan gizonak **aztikeria** hark. Xabier Aranburu

Horixe besterik ez dugu ikusten, eta sinetsiak gaude **aztikeria** dela. Koldo Izagirre

Aztikeria zela medio, eskuetatik zeruetarantz argizko zutabe zabal bat igo zen, ortzadarraren kolore guztiez osatua. Joanes Urkixo

Eritasuna, batzuentzat, **aztikeriaren** batek sorrarazia da; beste batzuentzat, berriz, mikrobio batek edo birus batek eragindako infekzioari zor zaio. Juan Garzia

Aztikeriari berehala antzeman zioten eta, sorgin batek arao egokiak esan zituelarik, Badr erregea atzera gizon bihurtu zen. Patxi Zubizarreta

Bere artean deitu zion eta hark erakutsitako **aztikeriak** esan zituen, baina hala ere ez zen ezer entzuten sarreran. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **beren aztikeriez** (5)

---

aztiketa *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi) iz* azti lana.

Numerologia, iragarpen eta **aztiketari** dagozkion alderdietan batez ere, sasizientzia tipiko bat da zentzu askotan. ETC-zientzia, zuzenbidea

Eragile naturalengan ekin daiteke beraien izaeraren eta jardueraren aldez aurreko ezaguera bat izanik, baita erlijioa eta **aztiketaren** bidez ere. ETC-entziklopedia

---

aztinantza *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**) iz* ametsen bidez igarpenak egitea.

Ohartu behar da amets bidezko **aztinantza** edo oniromantzia praktika ohikoa zela Ekialde Hurbileko antzinako kulturetan. ETC-entziklopedia

---

aztoragarri *izond* aztoratzen duena. ik **aztoratzaile**.

Han ikusi zituen asaldatu zuten irudiak: hareazko zuloetako esperientziez gain, hiltegiak ezagutu zituen, ume sentibera batentzat erabat **aztoragarria** . Berria - Kultura

Eta hantxe nengoen ni, agurearen eskutzar gorrixkak aulkiaren kontra zanpaturik, eta dozena pare bat begi arretatsu, libertitu eta **aztoragarrik** zeharkatuta. Alberto Ladron Arana

Txoria bera ez zen **aztoragarria**, noski, diseinua zegoen gaizki egina; baina emakume haren bizkarraldean aztoramena sortzen zuen zerbait baldin bazegoen, txori hura zen. Ibon Uribarri

Bestetik, hi tzak banan-bana mamurtuz eta elkarri etenik edo pausaldirik gabe hitz egiten zuen, arnasa sudurtzuloetan gora hartzean hots **aztoragarria** sortzen zitzaiolarik. Edorta Jimenez

Erru sentipen **aztoragarria** ernatzen zuten gutariko bakoitzarengan. Xabier Montoia

Gai **aztoragarriegia** zitzaion, hartaz eroso mintzo ahal izateko. Mirentxu Larrañaga

---

aztoramen *iz* aztoraturik dagoenaren egoera. ik **aztoramendu**.

-Inoiz bildu den armadarik handiena ei da gurea -esan nion, harekin hizketan segitzeko beste estakuru baten bila, nire **aztoramena** haren berbek bakarrik kendu ahal izango balute moduan. Edorta Jimenez

Tendentzia berrietan, ironizatu egiten da eta errepublika gazteko **aztoramen** materialista estigmatizatzen da. Berria - Kultura

Baina **aztoramena**, askatasuna, desinhibizioa, ez dira lobulu frontaletako lesioen ondorio bakarrak. Xabier Olarra

Bezperan, azken antolamenduak egiten ari ginela, halako **aztoramen** adierazkaitz bat genuen denok. Irene Aldasoro

Gerraren **aztoramenari** alanbre gainean legez eusten zion emakumearen premian nintzen. Edorta Jimenez

Aztoramenak goia jo zuen eta borborrean genuen giroa. Ander Irizar

Bazen haiengan **aztoramen** halako bat, Junior eta Charlotte heziera onekoegiak baitziren eskuarki, euren zalaparta eta marmarrekin jendea amorrarazten ibiltzeko. Mirentxu Larrañaga

Oxtabena borrokaleku arautu bat bilakatuko zen ostera ere, **aztoramenik** gabekoa, eta denok izanen ginen tristeago baina aldi berean lasaiago. Koldo Izagirre

Eztul ahul batzuk egin zituen, **aztoramen** iragankor eta oso arin baten mende, une batez, egon izan balitz bezala, eta hori izan zen dena. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aztoramen handia** (3)

---

aztoramendu *iz* aztoramena.

Segurtasun handieneko presondegiko patioan azaldu zinenean ikusgarrizko **aztoramendua** egon zen prentsan eta irratian eta. Koldo Izagirre

Inolako **aztoramendurik** gabe pasatu nintzen haien aurretik, eta elizaren pareko plazatxora heldu nintzen. Anjel Lertxundi

Aztoramendu ezkutu batekin egon nintzaion begira hain ohikoa zirudien imintzio horren esanahi gordea zein ote zen pentsatuz. Joxean Agirre

Txukuntasun hura gauza zentzugabea eta berezia gertatzen zen oso, kanpoko **aztoramenduarekin** alderatuta. Koro Navarro

Gero, berriak sortu dion **aztoramendua** gaindituta, mimosa estalgunearekin lotzen duen bidezidor-labirintotik hasi da astiro irristatzen. Patxi Iturritegi

Hasierako **aztoramendua** handitu egin zait, lo arazoak dauzkat, garai batean bezala hasi naiz deprimitzen. Agurtzane Juanena

Moskun zegoen **aztoramenduaz** mintzo zen telebistako esataria. Harkaitz Cano

Autodidaktak botako lukeen garrasiak eta bere masailean behera isuriko litzatekeen odolak eta pertsona hauen guztien **aztoramenduak** ez lukete tokirik. Monika Etxebarria

Tom igaroa zen lehenago ere arrebarekin antzeko egoeratatik, eta harengatik bihotzeko azken zuntzeraino ni bezain kezkaturik bazegoen ere, beraren **aztoramendua** leundurik ageri zen akiduragatik, haserreagatik eta urteetako etsipenagatik eta damuagatik. Oskar Arana

---

aztoratu, aztora, aztoratzen da/du *ad* izuak, ezinegonak edo gertaera bereziren batek animaliak edo pertsonak asaldatu edo bere onetik atera.

Aztoratu egin nintzen, belarraren eraginak ni baitan noiz arte iraun behar ote zidan,eta ez ote nuen burua betiko galduko, ez nuen-eta azken haietako berbetatik erdirik ere endelegatu. Edorta Jimenez

-Argiak horrenbeste **aztoratzen** bazaitu, zergatik esertzen zara ondoan? -galdetu nion. Xabier Olarra

Berea ez zen dirua ez zuela idazmahaian eduki nahi, horrek **aztoratu** egingo zuela, ez zuela lasai bizitzerik izango pentsamendu hori buruan izanik. Karlos Zabala

Poliki **aztoratu** zituen matematikariak galdera horrek XVIII. eta XIX. mendean. Jon Muñoz

Aztoratu edo egiten ninduten aurrean txaparrotan haize emanez neuzkan beltzek, baina begi-bistakoa zen askoz handiagoak ere ikusiak zirela. Joxan Elosegi

Eta hain xuxen odola abiatu zitzaion, odola burrustan zarion, eta odola ezin geldiaraz, eta odola ezin geldiaraz, azkenean haren amaren xeka joan ziren, gure errientsa arrunt kexatua, **aztoratua**, haur guziak izituak... Menane Oxandabaratz

Inuitak **aztoraturik**, zorabiatuta zeuden: beren herrian (beren unibertsoan) 234 lagun besterik ez ziren. Pablo Sastre

Hala, bada, zalantzak **aztoratuta**, bi aurre-matrikula egin nituen, badaezpada ere. Joxerra Garzia

Gutxitan bezala **aztoratu** dira erredakzioak. Iñigo Aranbarri

Urruneko pianoa bukaera **aztoratu** batekin itzali da. Xabier Paya

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aztoratu du (3); **aztoratu dute** (5); **aztoratu edo** (3); **aztoratu egin da** (3); **aztoratu egin nintzen** (8); **aztoratu egin zen** (19); **aztoratu egin ziren** (5); **aztoratu egin zuen** (7); **aztoratu egiten du** (4); **aztoratu egiten zuen** (4); **aztoratu ere** (3); **aztoratu gabe** (5); **aztoratu nahi** (5); **aztoratu ninduen** (7); **aztoratu nintzen** (4); **aztoratu zen** (12); **aztoratu ziren** (5); **aztoratu zituen** (5); **aztoratu zuen** (13); **aztoratu zuten** (4); **baina aztoratu** (4); **ere aztoratu** (6); **ez aztoratu** (5); **gehiago aztoratu** (5); **guztiz aztoratu** (4); **horrek aztoratu** (4); **merkatua aztoratu** (3); **mundua aztoratu** (3); **zeharo aztoratu** (5)

aztoratua zegoen (3); **erabat aztoratua** (3)

baino aztoratuago (4)

apur bat aztoraturik (3); **aztoraturik zegoen** (9); **aztoraturik zeuden** (3); **oso aztoraturik** (4)

aztoratuta dabiltza (4); **aztoratuta egon** (6); **aztoratuta gutxi esatea** (12); **aztoratuta nengoen** (4); **aztoratuta utzi hauela** (11); **aztoratuta zebilen** (3); **aztoratuta zebiltzan** (3); **aztoratuta zegoela** (3); **aztoratuta zegoen** (8); **erabat aztoratuta** (9); **ere aztoratuta** (3); **guztiz aztoratuta** (5); **hain aztoratuta** (7); **nahiko aztoratuta utzi** (11); **oso aztoratuta** (5); **zertxobait aztoratuta** (3)

aztoratzen hasi (5); **aztoratzen zuen** (9); **ez aztoratzen** (3); **gehiago aztoratzen** (5)

---

aztoratzaile *izond* aztoratzen duena. ik **aztoragarri**.

Ummm! Uhin **aztoratzaile**, dibertigarri, basati bat. Patxi Iturritegi

Desegin-behar malenkoniko hari ekiterakoan, laguntzaile (edo, zuzenago, **aztoratzaile** eta oztopatzaile). Juan Garzia

Espainiako erreinuaren kanpo politikan esku-hartze **aztoratzailea** izan da. Berria - Ekonomia

Hala ere, egun batean gauza desatsegin bat gertatu zen, neskato lotsabako batzuek Daviden taldeari erronka bota ziotenean, eta Angela Clare izeneko izaki **aztoratzaile** batek hainbeste yorker egin zituen ezen... Julen Gabiria

---

aztore **1** *iz* hegazti harraparia, handia, gaina iluna eta azpia zuri nabarra duena, usoak-eta harrapatzeko erabili izan dena *(Accipiter gentilis)*.

Aztore bat zekarren ezkerreko eskuan; hortik igarri zion Don Kijotek ehiztari guzti haien etxekoandre izan behar zuela. Patxi Ezkiaga

Aztorea iruditu zitzaion Zeunerri, behekoen peskizan goian hegaka dabilen **aztorea**. Felipe Juaristi

Eta, ikusirik nola zetozen gizon haiek, zuzi izeki berrien argipean laztu, larritu eta asaldatu ginen, nola usoa **aztorearen** ikusteaz. Joan Mari Irigoien

Haien gainean hegan ari da **aztoretzat** jo duzun bertze bat. Xabier Montoia

Ile motz eta grisa zuen, eta begi horiak, **aztoreak** bezala. Iñaki Mendiguren

Elurra egiten du gero; **aztore** batek zauritutako antzara baten hiru odol tanta daude elur gainean. Juan Kruz Igerabide

2 *aztore arrunt* *(corpusean ez dago; ETCn **7** agerraldi)*

Aztore arrunta ("Accipiter gentilis") hegazti harrapari bat da, falkoniformeen sailekoa, eta, honen barnean accipitridae sendikoa. Bere kontserbazio egoerak, arrisku txikiko hegazti mota bezala zehazten du. ETC-entziklopedia

Baita okil handiak, zapelatz liztorjaleak, **aztore arruntak** eta gabiraiak ikusi eta entzuteko ere. ETC-prentsa

---

aztun *iz* katebegia.

Azken honek iazko uztailean idatzitako eguneroko gertaeren bilduman zehazten du 600 itaunketa egin dizkiotela, bortxaketak eta umilazioak jasan dituela, gela oso hotz batean edatera eta jatera eman gabe ordu luzeetan utzi dutela, lurrean lotutako **aztun** bati kateatuta egon dela sarritan, eta aldizkari pornografikoak begi aurrean jarri dizkiotela Berria - Mundua

---

aztura *iz* ohitura, berezkoa nahiz hartutakoa.

Gizarte primitiboak horrelakoak zirela orokorki onartua dago, baina erantsi behar da giza arima primitiboak existitzen jarraitzen duela, zenbait **azturaren** pean ezkutatua, **aztura** hauek gabe zibilizazioak ezingo zirelarik sortu. Iñaki Mendiguren

Kanporat jalgi nintzenean, berriz -zeren osaba Joanikotekin geratua bainintzen jauregiko lizarren itzalpean, basorat joaiteko, urtxintxen **azturen** eta ohituren berri jakiteko asmotan-, solasean aurkitu nituen aita jesuita eta gure aita. Joan Mari Irigoien

Damu nuen **azturazko** begiramenei eskaintzen nizkien hogeita lau orenez. Jon Muñoz

Ez dago zientziarik foliolo baten tegumentuarenik, zelula baten filamentuenik, odol-zain baten makodurarenik, **aztura** baten maniarenik, aiurri baten gorabeherenik. Juan Garzia

Nik ere neure **aztura**, ahal dudala ez ditut alkoholak nahasten eta, whiskiari ekin nion, bazegoen eta egon. Edorta Jimenez

Aspaldi ez zeukan Martak zigarro bat bakean erretzeko zortea, Olatz mimetiko hura etengabe ari baitzitzaion atzetik bere erretzeko **azturak** ere imitatzen. Harkaitz Cano

Bigarrena da pozaldien eta lehorraldien **azturaz** eta espiritu sail bat bereizteaz aski argitasun eta ezaguera hartzen denean. Patxi Altuna

---

azturu *(corpusean ez dago; ETCn **2** agerraldi)* *iz* aztia.

-Hamar minutu eskas dira ohar hau Watson andereñoaren esku ederretik jaso dudala -esan zuen-; Stantonen aurkitu dut, nire **azturu** onek bertara gidarazi baitizkidate zaldiak. ETC-literatura, saiakera

Hasieran, Varuna-Mitra, Urano-Zeus, Eguzkia-Ilargia, Eguna-Gaua bikoetan ez da ageri inolako elementu femeninorik, ezta Ongiaren eta Gaizkiaren, **azturu** onen eta txarren, eskuinaren eta ezkerraren, Jainkoaren eta Deabruaren oposizioan ere; bestetasuna kategoria funtsezkoa da giza pentsamenduan. ETC-literatura, saiakera

---

azufre *(ETCn **31** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **sufre** agertzen da)* *iz* gai bakuna, 119 °C-tan urtzen den ez-metal horia, gar urdinez erretzen dena (S; at. z. 16). ik **sufre**.

Hirugarrena, usaimenez kea, harria, **azufrea**, kirats zikina, zaborreria eta ustelkiak usnatzea. Patxi Altuna

Errauste plantek ez omen dituzte oso gai kutsagarri arriskutsuak sortzen (karbono-dioxidoa, **azufre**-dioxidoa, dioxinak, furanoak, kadmioa, beruna...) Berria - Euskal Herria

---

azukratu ik **azukreztatu**.

---

azukre **1** *iz* gai eztia eta urkorra, erremolatxatik edo azukre kanaberatik ateratzen dena, ale zuri txikietan kristaltzen dena.

"Sugar" bazioen ere, ez zuen **azukrerik** topatu tapa altxatzean. Joxemari Urteaga

Mahaia atonduta zegoen ordurako, esne beroa katiluetan, **azukrea**, eta esertzeko hurreratu zen, baina hiru katilu kontatu zituen, hiru koilara, eta eseri beharrean leihorantz joan zen berbarik esan gabe. Joseba Sarrionandia

Karrikara begira jan zuten, zerra gogor bat patata frijitu koipetsuekin, eta amaitu ondoren kafe kolorea zuen edaria hartu zuten, **azukrerik** gabea. Felipe Juaristi

Kilo erdi pasatxo **azukre** zeukan kukurutxo bat utzirik eskuan, biharamunean itzuliko zela esan, agur egin, eta han joan zen. Juan Garzia

Mutu hartu zuten, eta mutu jarraitu zuen Azkaratek hondoko **azukrea** zaliaren giderraz mihiratzen. Koldo Izagirre

Xaboibil napolitar: gariz, landare lotarazlez, ahuntz esnez, almendra mikatzez eta **azukre** zuriz egina. Patxi Ezkiaga

2 *iz* kimikan, gutxienez lau karbono atomo, zenbait alkohol funtzio eta gutxienez aldehido funtzio bat duten karbono hidratoen genero izena.

Azukre molekula sinpleak atzeman dituzte Esne Bidean. Berria - Gaiak

Shapirok zuzentzen duen taldeak proteinarik, gantzik eta **azukrerik** gabeko substantzietan probatu ditu gailuak orain arte. Berria - Gaiak

Garaile ageri zen, zabal eta eroso hartzen zuen arnasa haritz argizko jangelan; **azukrea** erretzeko gogoa zuen, han sumatzen zuen argalkeria doilor usaina uxatzeko. Karlos Zabala

Gose-urteetan, barruko azal hori, eho eta beste irin batzuekin nahasian, ogia oretzeko balio zuen, fekula eta **azukrea** dituelako. Pello Zabala

9 ***azukre almendra***

Kukurutxoak paperezko kukurutxo meheak dira, non dendariek erakusleihoko hondakinak jartzen baitituzte: **azukre almendra** hautsiak, marron glaceetatik eroritako puskak, gozoki ontzien hondar susmagarriak. Karlos Zabala

10 ***azukre beltz***

Azukre beltza kafean nahasten den bezain goxo egin genuen dena. Sonia Gonzalez

11 ***azukre beterraba*** *(corpusean ez dago; ETCn **10** agerraldi)*

Azukre-erremolatxa edo **azukre-beterraba** (" Beta vulgaris subsp. vulgaris") barazki gisa landatzen den biurteko landare belarkara da. ETC-entziklopedia

12 ***azukre birfindu*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Koipeek, haragi gorri eta jaki prozesatuetatik datozenek batez ere, eta irin nahiz **azukre birfinduek** gain-esfortzu bat eskatzen diote gure pankreari digestioaren orduan. ETC-prentsa

Edari mikatzek eta **azukre birfinduak** ez du jada -XIX. mendeko iraultza industriosoan bezala- suspertze fisikoaren funtzioa betetzen. ETC-prentsa

Azukre birfindua kendu behar da, eta azukre beltza erabili ordezko. ETC-prentsa

3 ***azukre erremolatxa*** azukrea ateratzeko erabiltzen den erremolatxa barietatea *(Beta vulgaris var. saccharifera)*.

Autoan noa laborantza lurretan, olo eta **azukre erremolatxazko** zelaietan barrena, sagarrondoak, ganadua larrean atzean utzi ondoren. Koro Navarro

Nik aukeran nahiago nituen azken horiek, urtsuagoak eta gehienetan handiagoak baitira, nahiz eta adituek esan **azukre-erremolatxak** alimentu gehiago daukala eta elikagarriagoa dela -baina ezin mizkina izan, nahiz eta gehiegi gustatu ez haragi gogor eta zapore min hori. Urtzi Urrutikoetxea

13 ***azukre findu*** *(corpusean ez dago; ETCn **27** agerraldi)*

Azukre zuria: ehuneko 99 baino gehiago sakarosa duen azukrea da. Fintze prozesu moderno baten emaitza da. **Azukre findua** ere deitzen zaio. ETC-entziklopedia

[...] goizetan, aurrena zereal hotzak hartuko zenituen (arto malutak, arroz karraskaria, gari birrindua, gari harrotua, arroz harrotua, cheerios - sukaldeko armairuan aurkitzen zenuen edozer), eta horiekin katilu bat bete, busti esnearekin, eta ondoren koilarakada bat (edo bi) **azukre findu** zuri botako zenion gainetik. ETC-literatura, saiakera

Janari ez gomendagarriak: **Azukre finduak** dituzten jakiak (galletak, pastelak, gozoak, opilak, botilako zukuak eta edari freskagarriak). ETC-prentsa

Arazoa da gaur egun produktu askori gehitzen diotela azukrea, prozesu kimikoa jasan duen eta kaloriak baino ez dituen **azukre findua**. ETC-prentsa

Azukre finduek eta gantza daukaten elikagaiek dopamina eta endorfina gehiegi sorrarazten dute. ETC-prentsa

Gehienek **azukre finduak** eta gantz saturatuak dituztenez, sintomak okerragotu egin ditzakete. ETC-prentsa

Azukre findua: ohituraz kontsumitzen duguna hainbat eratan aurkeztua (sakarosa % 99,9). ETC-zientzia, zuzenbidea

Gaur egun, azukre-kanaberatik eta erremolatxatik ateratako **azukre findua** dela-eta, ohitura horiek galdu egin dira. ETC-zientzia, zuzenbidea

Horrek manufaktura oso dibertsifikatuak bultzatzen zituen; nabarmentzekoak ziren, besteak beste, ehungintzako bukalan-prozesuak, **azukre-fintzea** edo tabako-lanak. ETC-zientzia, zuzenbidea

14 ***azukre glass*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Txokolatezko trufa, txokolate bonboiaren antzeko itxura eta zaporea duen gozoki bat da, baina, "fondant" motako txokolate beltz urtu, gurin, **azukre glass**, gorringo eta esne-gain esnegainezko nahasketa batekin egina. ETC-entziklopedia

4 ***azukre hauts*** azukre birrindua, gozogintzan erabiltzen dena.

Azukre hautsak luze pentsarazi zion; hatza busti, azukretan sartu eta miazkatu, oso gozoa da. Karlos Zabala

Kopa ertzean **azukre hautsa** eta pajita batekin, Lañuak begiak xuri-xuri eta errezeloz begiratzen zuen. Pablo Sastre

Azkenean aitortu zuten: ziria sartu zidatela, eta eskaini zidatena ez zela koka, **azukre-hautsa** baizik. Iban Zaldua

Bata da azukrea ikustea, begiez ziurtatzea azukrea dela, zuria dela, eta bestea hatzez hartu eta esku mintzetan pinportak ihesi joan daitezen utzi eta gero, esku-ahurrean, **azukre hautsaz** hazkura sentitu eta hazka egitea. Felipe Juaristi

15 ***azukre kana*** azukre kanabera.

Azukre kana salerosle aberatsa zen. Herria

"Forró"-a, **azukre kanaren** memorioa da. Herria

5 ***azukre kanabera*** lastodunen familiako landarea, eskualde tropikaletakoa, azukrea lortzeko erabiltzen dena *(Saccharum officinarum)*.

Basoko txerrikiari; eltzeko janariari; garrangako arrainari; **azukre-kanaberari**, euriari eta aulki kulunkariei. Anton Garikano

Hautan ekoizten dira kafea, banana, kotoina, **azukre kanabera** eta txiklea. Herria

Andres Untzainen garaian Melena del Sur **azukre kanaberaren** ustiakuntzatik bizi zen, orduan ez ezik gaur egun eta askoz lehenago ere bizi zen legez. Edorta Jimenez

Gero... barbaria-pikuren bat, bide ertzean atzemaniko patata erdi ustelen bat, koko puxka, **azukre kanabera** zati bat, sustrai batzuk, karramarro bat. Pablo Sastre

Eskaera bultzatu nahi du Bruselak, eta kuotak kendu eta zergak jaitsiko dizkie ekilorea, **azukre kanabera** zein etanola edo biodiesela sortzeko erabiltzen diren beste laboreak landatzen dituzten nekazariei. Berria - Gaiak

Imajina dezagun **azukre-kanaberen** artean gaudela etzanda eta ilaran-ilaran pasatzen ikusten ditugula, eskuan daga bana daramatela. Julen Gabiria

16 ***azukre-kotoi*** *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi)*

Bost edo sei edo zazpi eri hartzen ditut, sail desberdinetakoak, zahar-saridunak eskuarki, eta ohatilan etzaten ditut, banaka-banaka, **azukre-kotoia** balira legez. ETC-literatura, saiakera

Lizasori, **azukre-kotoi** arrosako pintxotzarra daraman neskato bati iskin egitean, txapela jausi zaio burutik, eta umeak ikarazko oihua bota du haren buruaren itxura higuingarria ikustean. ETC-literatura, saiakera

Nik ere bizar erraldoia izango dut, **azukre-kotoizkoa** bezalakoa. ETC-prentsa

Eta tripak are gehiago nahasteko, **azukre kotoi** bola handi horietako bat irentsi duzu. ETC-prentsa

Tonbolak, bingoak, mila jostailu dituzten dendak, karameluzko sagarrak eta **azukre kotoia** saltzen dituzten dendek ongietorria ematen diote bisitariari. ETC-prentsa

Janaria eskaintzen duten postuak ere badaude: ostatutxo bat eta gozoak eta **azukre kotoia** eskaintzen dituzten postu txiki bana, besteak beste. ETC-prentsa

Urtero atrakzioen, tonbolen, **azukre kotoien** eta txurroen artean jaiak bizitzea gustuko duten haur, gazte, heldu nahiz adinekoak biltzen dira Arrotxapea auzoko Runako parkera. ETC-prentsa

Janaria saltzen duten postuak ere badaude: western itxurako taberna bat eta gozokiak, erroskillak, fruitu lehor frijituak eta **azukre kotoia** eskaintzen dituzten postu txikiak, besteak beste. ETC-prentsa

6 ***azukre koxkor*** *(orobat **azukre koskor**)* azukre puska trinko txikia.

Osabak **azukre-koxkor** bat sartu zion ahoan. Bernardo Atxaga

Tea **azukre-koxkorrez** bete didazu, eta nik argi eta garbi ogia eta gurina eskatu dizudan arren, pastela eman didazu zuk. Antton Olano

Konturatu nintzen halaber, bere kuttunetako batzuentzat, bere hizkuntza zekitenentzat bereziki, bigarren **azukre-koxkorra** izaten zuela. Urtzi Urrutikoetxea

Unaji jaunak kafesne bat eta bi **azukre-koxkor**, hamarretan. Joxan Elosegi

Adibidez, guk behaturiko **azukre-koskor** oro litro bat uretan disolbatu bada ere, gerta liteke beste askoz hori bera esatea egia ez izatea, behatuak ez direlako izan, esaterako. Askoren artean

Joe Costellok beste **azukre koskor** bati papera kendu, eta airean eutsi zion hatz lodiaren eta erakuslearen artean; eta, ahotsa kenduz gero, pattarrean bustita hartzeko modu egokia azaltzeko erakustaldi bat egiten ari zela esan zitekeen. Ramon Saizarbitoria

7 ***azukre mokor*** azukre koxkorra.

Udako oparotasunak asebeterik -urtaro horrek jaki gozo ugari eskaintzen baitizkie berez-, ez dira jatera inguratzen, ezpada beren burua erakustera: aurrera eta atzera ibiltzen dira **azukre-mokorren** gainean. Jose Morales

8 ***azukre-ontzi*** *(orobat **azukreontzi**)* azukrearentzako ontzia.

Baina agian garratza irudituko zaizu, hor duzu **azukre ontzia** beraz. Javi Cillero

Zomorro madarikatu horiek berriro aurkitu diote **azukre-ontzirako** bidea, goizean bi bider behintzat lekuz aldatu duen arren. Patxi Iturritegi

Klarak **azukre-ontzia** inarrosi zidan begi parean. Aingeru Epaltza

Eskerrik asko, erantzun du Lainezek Juanak katilua eta **azukre-ontzia** mahaian jarri dizkionean, eta irribarre egin eta emakumearen begiak bilatu ditu. Pello Lizarralde

Mahai gainean **azukreontzia**, inurri ilara batekin. Joseba Sarrionandia

Orduan beste pixka bat jarri dut **azukreontzian**, atzo alabak eta biok kafeari bota genion, eta handik bi ordura gonbitoka geunden bi-biok ere. Juan Garzia

17 ***azukre palmondo*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Azukre-palmondoa ("Arenga pinnata") palmondo espeziea da, Malaysian hazten dena eta 12 m inguru luze egiten dena. Palmondo mota honen izerdia "arrack" ardoa egiteko erabiltzen da. Ardo hori lurruntzen utziz palmondo-azukrea lortzen da. ETC-entziklopedia

18 ***azukre tontortxo***

Adin indefinituko dendari txinoa, Wang deituko da edo Li, oso gora altxaturiko eskuaz palatxoari eraginez, balantzaren platerean jadanik osatua duen **azukre tontortxoaren** gainera azukre jausi fin fina ari da botatzen, bi libra azukre ale baten gorabeherako zehaztasunez neurtzeko. Joseba Sarrionandia

19 ***azukre zuri***

Azukre txarra horrelako jakiek dute: laktosa esneak, fruktosa fruituek eta sakarosa **azukre zuriak**. Berria - Euskal Herria

Xaboibil napolitar: gariz, landare lotarazlez, ahuntz esnez, almendra mikatzez eta **azukre zuriz** egina. Patxi Ezkiaga

Frak beltzak nonahi ageri ziren, bakarka zein taldeka batetik bestera joan-etorrian, hala nola euliak **azukre zuri** distiratsuaren gainean uztaileko egun sargorietan, etxeko giltzain zaharrak azukrea mokor dizdizarietan zatitzen duenean leiho irekiaren aurrean. Jose Morales

Maiz lepora dakiguken gaitz hori; ezin ukatu, alegia, debozioaren begitartez eta onbidezko ekintzaz badakigula **azukre-zuritzen** deabrua bera ere. Juan Garzia

20 ***azukrezko gozoki*** *(corpusean ez dago; ETCn **6** agerraldi)*

Azukrezko gozokia karamelu kristalino bat da, gutxi gora-behera, piruleten antzerakoa, pixkat bigunagoa, baina gomagoxo txiklea bezain leuna izan gabe. ETC-entziklopedia

21 ***azukrezko kotoi*** *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi)*

Baina Versus isilik egon ohi da, totem baten gisa, laztan eta xera eta lausengu, zerua ahoan **azukrezko kotoia** balitz bezala, zeru osoa ahoan eta pozkidaz negarrez. ETC-literatura, saiakera

Nora joan da chochona panpina irabazi nuen tonbolako nomada hitzontzia?, eta lurrean zapaldutako ehunka kartoitxo sari gabe haiek?, eta uztailaren 7ko usaingozoa zuten **azukrezko kotoi** haiek? ETC-literatura, saiakera

Edo jolasparke batera, talka-autoetan ziztu batean joateko, sabela **azukrezko kotoiez** betetzeko, kokoak beren ontzietatik botatzen huts egiteko eta zenbait tramankuluren gainean airean biraka ibiltzeko, indarra galtzen duten arte. ETC-literatura, saiakera

Alboko litxarreria dendan erositako **azukrezko kotoiarekin** saiatu dira txikia limurtzen. ETC-prentsa

Azukrezko kotoiaren postuaren ondoan, berriz, barrakak: itsasontzi pirata, Alcatraz kartzela hegalaria, kanguroa... ETC-prentsa

Gozokizko sagarrak eta **azukrezko kotoiak**, halaber, ezinbesteko jakiak izan ohi dira barraketan, umeen aho gosetiek maiz begiratzen baitiete desioz. ETC-prentsa

Azterketak nola egiten diren ikusteko, demagun perdigoi-karabina batekin tiro egiten dugula itu biren kontra; itu bat **azukrezko kotoia** da, eta besteak, berebat **azukrezko kotoia** izanik, zentroan altzairuzko bolatxoa du. ETC-zientzia, zuzenbidea

22 ***glas azukre*** *(corpusean ez dago; ETCn **14** agerraldi)*

Azukre hautsa edo **glas azukrea** hauts fin itxura izan arte xehatutako azukrea da. ETC-entziklopedia

Ateratakoan algarrobo krema ipini genion barnean eta, sari gisa, **glas azukrearekin** hautsezta zezan utzi nion. ETC-literatura, saiakera

Bere izenburuari jarraiki, pastel txikiz osatu du menua, eta horietako bakoitzaren barruan kafe eta **glas azukrezkoa**, eztia mamiarekin, bertako sagarrekin... aurkituko ditu ikus-entzuleak zuzeneko emanaldiak. ETC-prentsa

Atera gereziak moldetik, bota **glas azukrea** gainetik eta ekin gerezi epelak jateari. ETC-prentsa

Gaina egiteko bi zuringo eta **glas azukrea** nahasten ditu, irabiagailua erabiliz. ETC-prentsa

23 ***glass azukre*** *(corpusean ez dago; ETCn **3** agerraldi)*

Zabaldu gainetik laranja edota kanela hautsa eta **glass azukrea**. ETC-prentsa

Zuringoak harrotzeko **glass azukrea** baliatzen dute profesional askok eta, emultsioa amaitutakoan, lurringarriak (banilla, kokoa) edota fruitu lehorrak (pinaziak, amandak, pistatxok) gehitzen dizkiote. ETC-entziklopedia

24 ***kandi azukre***

Pateak, bero-beroak, beren etiketen banderatxoekin; urdaiazpiko handiak, txahal eta txerrien atal ederrak, izozturik, haien izotzak **kandi azukrearen** gardentasuna erakusten zuela han-hemenka. Karlos Zabala

Saint-Denis kalean litxarreriaren artera sartzen ziren; irribarre egiten zieten gozo dendetako erregaliz zainei, aran pasei, labean lehortutako sagar zanpatuei, **kandi azukreari**. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azukre errearen (4); **azukre gehiago** (3); **azukre hautsa** (4); **azukre kanabera** (11); **azukre koskor bat** (5); **azukre koskorra** (5); **azukre koxkor bat** (5); **azukre koxkorra** (10); **azukre koxkorrak** (4); **azukre kozkor** (4); **azukre ontzia** (5); **azukre poto** (3); **azukre potoa** (7); **azukre ura** (5); **da azukre** (3); **hiru azukre** (3); **nire azukre** (4); **sagar eta azukre** (3); **zenbat azukre** (3)

azukrea edo (3); **azukrea ez** (3); **gero azukrea** (3)

azukrearen prezioa (5)

azukrerik gabe (6); **azukrerik gabea** (3); **ez azukrerik** (3)

---

azukredun *izond* azukrea duena.

Hozberoari oniritzirik, gainean sagar-xerra batzuk zeramatzan ore **azukredun** bat laberatu zuen azpil batean. Anjel Lertxundi

Ogiak **azukredun** opilei egin die tokia eta krakadetan nagusiak dira bizkotxa industrialak. Berria - Euskal Herria

Horrexegatik amesten da gaixotzea, eritegian esnatzeko, han txano zuriko mojek edabe **azukredunak** ekarriko baitizkizute ohera. Josu Zabaleta

Romantour batek, zilar paperez jantzita, hartzidura garratz haien artean galdutako turroi baten antza zuen, edo gazta **azukredun** batena, bestela. Karlos Zabala

Egur zaintsu honen gainean berniza bezala zabalduriko usain beltzean, zuntz murtxikatu eta **azukredunaren** zaporean. Monika Etxebarria

---

azukregintza *(corpusean ez dago; ETCn **13** agerraldi) iz* azukrea ekoiztea.

"Aldaketa honekin **azukregintzako** enpresa askok erabakiko dute euren kuota murriztea", esan du Fischer Boel Europako Nekazaritza komisarioak. ETC-prentsa

Eta haien artean, batez ere elikagaien transformazioari lotutakoak, gutxi-asko industria-elaborazioa eskatzen zutenak: ardogintza, oliogintza, **azukregintza** eta abar. ETC-zientzia, zuzenbidea

Azukregintzak gogor nozitu zuen 1939ko Kuba eta AEBen arteko harremanen haustura. ETC-entziklopedia

XIX mendean mahastiek izurriteak jasan zituzten (Europa guztian bezala) eta **azukregintzara** itzuli zen Madeira. ETC-entziklopedia

Zeta eta larrugintza, petrolio findegia, oihalgintza, kimika industria eta **azukregintza** dira ekonomiaren oinarriak. ETC-entziklopedia

Bigarren sektorean elikadurazko industria gailentzen da, hala nola, ardogintza, **azukregintza**, esnegintza, okintza eta gozogintza. ETC-entziklopedia

---

azukregorritu, azukregorri(tu), azukregorritzen *(corpusean ez dago; ETCn **11** agerraldi; orobat **garrapiñatu** ETCn **33** agerraldi)* **1** du *ad* karamelu bihurtututako azukrez estali. ik **garrapiñatu**.

Hurrak gozogintzan ere erabiltzen dira, **azukregorrituta** edota txokolatearekin nahastuta. ETC-entziklopedia

2 (era burutua izenondo gisa)

Garrarteko Angelines Catalak urteak daramatza bere produktuak Euskal Dendara eramaten, "azokan elikagaiak saltzen hasi zirenetik"; Olentzeroren irudia duten piruletak, karameluzko apaingarriak, turroiak eta produktu **azukregorrituak** saltzen ditu, besteak beste. ETC-prentsa

Esparruko kale nagusiak karamelu usaina zuen, esparruko sarrerak ogi egin berriarena, esparrutik fabrikara bidea zeharkatzeak muxika beroena, fabrikako egurrezko hesiak intxaur **azukregorrituena**, fabrikako sarrerak nahaskiarena, jamak lurrundutako piperrena, zakartegiko zepak tomate-zoparena, hoztorreak alberjinia erreena, lurrun-hodien labirintoak banilla-hostopilarena. ETC-literatura, saiakera

3 ***almendra azukregorritu*** *(corpusean ez dago; ETCn **4** agerraldi)*

Han, hestebeteak eta urdaiazpikoak jarri ohi dituzte sabaitik zintzilik, eta **almendra azukregorrituak**, txokolate eta karamelu lodiak bitrina batean. ETC-literatura, saiakera

Almendra azukregorrituek ere zaletu dezente izan dituzte. ETC-prentsa

Batetik **almendra azukregorrituak** saltzen dituen denda dago. ETC-prentsa

Horretan ere, eskaintza askotarikoa da: txokolatea, gozokiak, etxean egindako jogurta, ogia, gazta, **almendra azukregorrituak** eta beste hainbat jaki daude eskura. ETC-prentsa

4 ***arbendol azukregorritu*** *(corpusean ez dago; ETCn agerraldi **1**)*

Arbendol garrapiñatuak edo **arbendol azukregorrituak**, gordinik daudela, karamelizaturiko azukrez eginiko karameluzko estalki bat gehitzen zaien (alegia, azukregorritzen diren) arbendolei deritze. ETC-entziklopedia

---

azukreontzi ik **azukre 8**.

---

azukretsu *izond* azukreduna, azukre asko duena.

Koktel **azukretsuak** bezain koloretsuak edan genituen, uharteetako musikaren doinuan, eta oso urrun gertatu ginen bat-batean. Joxan Elosegi

Berehalako plazera ekartzen duten arno **azukretsuagoak** bihurtu dira erreferentzia. Berria - Harian

Gerta daiteke ponpa hori gainkargaturik egotea -janari **azukretsu** asko jateagatik, esate baterako-, eta, orduan, gernura ihes egiten du glukosaren parte batek, ponpak ez duelako behar hainbat indar hura atzera odolera bultzatzeko. Irene Aldasoro

---

azukretu ik **azukreztatu**.

---

azukreztatu, azukrezta, azukreztatzen *(orobat **azukretu**)* **1** du *ad* zerbaiti azukrea ezarri.

Agian seko lo egiten du, arnasa **azukretuta** hatzetako melazagatik edo galleta-papurrengatik. Anton Garikano

2 (izenondo gisa)

Bakoitzak pastiza lodi bat zirudien: **azukreztatua** eta kremaz betea. Ramuntxo Etxeberri

Eskatutakoa jaso bezain laster latako behiki xehatu xigortuari egin zion eraso, ahamen bakoitza atsegin handiz ahogozatuz, krak egiten zuten patata frijitu gozoak mihiaz hortzen kontra zanpatuz, kafe **azukreztatuegi** bati tarteka zurrupadak emanez. Lopez de Arana

Baina bere hiru seme-alabak zapi **azukretu** bana ari ziren miazkatzen manta baten azpian Ohiora bidean, eta gurinarekin jolasteak ez zuen aldatuko hura. Anton Garikano

Katuak katilua hustu du, hondoa garbitu, ertzak lehortu, eta, azkenean, bere ezpain **azukretuak** miazkatu. Itziar Otegi

Edandakoa, jakina, ez zen Txemak lehentxeago amesturiko muxika-ur **azukreztatu** freskagarri hura, ezpada, norbaitek poto horrexetan ezarririko pipermin edo pepinotxo edo tipuleta-ur ozpindua. Josetxo Azkona

---

azul *izond* urdina.

Haatik, Lisboan ura epel eta zerua **azul**, oporretan hastekotan nintzen. Edorta Jimenez

Tatxa gorri batek -edo berdeak, edo **azulak** - estal nazala! Koldo Izagirre

Udaletxera bidean abiatu zen segidan, zira **azul** marinoa soinean eta plastikozko poltsa zimurtu batekin. Unai Iturriaga

Meditarraneoan barrena, haize alde, arima dagoeneko **azulez** betea, Julio Villar liburu bateko orrialdeak irakurtzen imajina genezake. Patxi Zubizarreta

Ez ziren bakarrik urre koloreak, okreak, horailak, laranjak, gorriak berdeekin nahasiak, zeruaren **azularen** berezitasuna zen ere; usainak ere diferenteak ziren, landareen hostoen perfumea, lurra berarena, ahuntz esnearena. Ana Urkiza

Bost seme-alabetatik neska bat bakarrik etortzen zitzaion bisitan, berak bezalako ile luze beltz ia **azula** zeukan alaba nagusia. Sonia Gonzalez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
mirari azula (4)
mirari azulak (3)

---

azulejo ik **azuleju**.

---

azuleju *iz* adreilu zapal beiraztatua, paretak eta lurrak estaltzeko erabiltzen dena.

Okerrena zera izan zen: nik lan egiten nuen enpresa harexek egin zuela gero Zaperoren txaleta, eta hantxe ibili nintzela ni, alu haren komuneko **azulejuak** ipintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Kamioiak **azulejuak** zeramatzan, baina Poliziak susmagarriak ziren bost zaku ikusi zituen, eta haien barruan aurkitu zuen kokaina. Berria - Euskal Herria

---

azunbre *iz* edukiera-neurria, bi litro ingururen baliokidea.

Orduan **azunbreetan**, liberetan, liberdietan eta halakoetan egiten ziren-eta kontuak. Edorta Jimenez

---

azurita *(corpusean ez dago; ETCn **16** agerraldi) iz* kobre bikarbonatoz osaturiko mineral urdina.

Azurita kobre Cu3 (karbono Coxigeno O3) 2 (OH) 2 formula kimikoa duen mea mineral kobreduna da. Eguraldiaren eraginpean dauden kobre metaketetan sortzen da. ETC-entziklopedia

Malakita mineral bat da, (Cu2CO3 (OH) 2); askotan, **azurita** (Cu3 (CO3) 2 (OH) 2) izeneko beste mineral batekin batera agertzen da, konbinazio oso baliotsuak sortuz. ETC-entziklopedia

Berarekin batera kuartzoa, limonita, **azurita**, malakita, kuprita eta kobrearen mineral sekundario gehiago ageri ohi dira. ETC-entziklopedia

Kolore berde iluna du, eta kristal-distira. Kobre sulfuroen oxidazioz sortzen da, eta **azurita**, limonita, krisokola eta beste gai batzuekin elkarturik agertu ohi da. ETC-entziklopedia

Dena dela, aipagarriak dira Emboscadako manganeso hobiak, feldespato eta mikakoak Concepciónen, talko eta piroflitakoak Concepciónen eta San Migelen, eta malakita eta **azuritakoak**. ETC-entziklopedia

Ohiko ordezkoak, **azuritak**, ez du freskoetarako balio, ze urarekin kontaktuan berdetu egiten baita eta, a secco aplikatuta, berriz, zartatzeko arriskua dauka. ETC-literatura, saiakera

Rafael (1483-1520) margolariak irtenbide merkeagoa erabiltzen zuen: oinarrizko geruza urdinak **azurita** arrunt merkeagoaz margotzen zituen eta itsas urdina azken geruza eta ukituetan xahutzen zuen soilik. ETC-prentsa

Material horiez gain, zilarra, rubiak, dioptasa -Kongoko esmeralda-, olibinoa, **azurita** eta blenda ere erabili dituzte, adibidez. ETC-prentsa

Adibidez, malakita berdea da beti, eta **azurita** urdina. ETC-zientzia, zuzenbidea

---

azuzena *iz* zitoria.

Eta ontzitik **azuzenak** kendu, eta arrosa bat jarri zuen. Joan Mari Irigoien

Euskaraz lili esaten dugunean ia lore esango bagenu bezala da, lili hitza erabiltzen baita hainbat lore izendatzeko: zitoria, lila, **azuzena**, itsas lilipa... eta batez ere lirioa edo ostargia (zeruko argia). J.M. Olaizola "Txiliku"

---

azzurro *izond/iz* Italiako futbol selekzioko jokalaria, edota haien elastikoa.

Beste alde batetik, **azzurro**-ek euren joko sistema aldatu beharko dute. Berria - Kirola

---